AGUR

ILLEROKOA
1 ZENBAKIA

1970 - ORRILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ZURI

Bilbo-ko urian, Ibaizabal ertzean jaio naz. Oraintxe jaio be, luzaroan lurpean egon eta gero. Jaio-barri, orril au lez. Baiña lurrean ez da jaio iñoiz ezer, leenago azia erein barik. Onela nire azia be urte zaarretakoa: areitz zaarraren ezkurra. Ernekatzik emon barik, lur emonkor bat eta aro on bat noiz etorriko itxaroten egon eta azkenik erne. Bizi-bizi erne be.

Argitara azaldu baiño ez, orri-biko eginda, ZORIONA euskaldun guztioi. Ziur nago onetan, euskaldun guztiok pozik onartuko nozuela, uste izatean. Zuen ezbear eta atsekabeon artean, jaiotza on baten poza dakartsuet. Zuek poztuaz, ni be pozik. Zorion au iraunkorra izan bedi gurean.

Zoriona, Bilbo-ko neure 40.000 euskaldunok. Aurrerantzean alkarregaz biziko gara; ta euskeraz alkar aituko. Nilako bat baiño gitxiagorik ezenduen merezi.

Zoriona, bizkaitar guztiok. Zeuen berbeta utsean nator, errez ulertzekoan. Zer irakurri geiago, ta barriak nun artu ta nun zabaldu izango dozuelako.

Zoriona euskaldun guztiok. Bizkaiera indartuaz euskera indartuko dalako. Onen bidez elduko ain maite dogun batasunera Poza artu euskeraren bizia zeuokaz batera sendotuko dalako.

Bilbon diru asko dago, zoritxarrez ez geure eskuetan. Alan be maitasunak indar aundia dau ta, ba dira asko euki ez ta be, daukentxoaz amets dagienak. Gazte biotz zabaloi eskarrak, ni argitara. Nire poza. Ume batek beti dau jaioteko gogoa; negar zelaira ekarri badakarre be, maite dauz gurasoak.

Izena «agur» ezarri dauste; euskaldun guztiek eta erdeldun askok be aitzen dabena.

Gurasoek esan daustenez, agur ori ez da alde egitera doan arena, aurpegia lur oni emotera datorranarena baiño; etorri nator ta orretantxe.

Euskal Erri au lenengoz begiz jotzean:


Agur bero bat azabeai. Gure Bilbon eta Euskalerri osoan gure izkuntzaren alde jokatu ta gora joan ziranei. Areik egin ebezan euskaldun nire gurasoak.

Agur bero bat gazteoi be. Ez dira makalak zeuen adorea ta kemena. Zuek sortu nozuen ezkero, azi ta ezi be zuek egingo. Nire kuma inguruan guraso gazteak, Aitorren izkuntzan entzuteak, adurretan jarri nau.

Etorrerako agur onetan, Bilbon sendotuta, auxe da nire irrintzia: euskeraz beti. Bizkaieraz, alan dakie nire gurasoak eta. Goi-maillako euskerari bideak egin. Bide zaarrak galdu barik, barritu, sendatu. Zapata barriekaz, leengo biotzaz.

Agurrik iñori ukatu barik, ume lez asarrea zer dan be ez dot jakin gura.

Guztiontzat, zeuon berbetan, zutunik, txapela erantzita: AGUR JAUNAK, JAUNAK AGUR, AGUR T'ERDI.



Begoña'ko Ama - Gure Zaindaria

ITXAROPENAK ETA KEZKAK

Europarren batasuna aurrera doa. Urtebete osoan pot eginda euki dauen ostoporik gogorrena azpiratu al-izan da, lenengo La Haya'n gero, Gobonetako zorion-txartela lez, Bruselas'ko batzarrean, gogoan izango dogu beti. Sei'ko Europaren Diru-biltze bakarra erabagi dauskue; aor lenengo maillea igota, errezkadan datoz urrengo besteak, batez-bere, Europa Batu'ko Batzar Nagusi edo Lege Biltzarra. Oraindik kezkak: Ez ete-dausku atzen orduko ostikadaren bat botako norbaitek, eta gu? Betiko kanpoan ete?

* * *

Kanzer gaiztoaren birus'en bat atzitu ei-daue. Eri bildurgarri onek, bere azkena izango dau itxuraz laster. Ainbeste kezka ta ondapen dakarran gaixoa ezebestera doaz. Azelako lasaitasuna gizadiarentzat! Kezka bat emen be. Alkola, ta orren ondorengo drogak, ta «birus» barri gaiztoenetakoa... lau burpildun berebilla. Zenbat eriotzen errudun!

* * *

Urrea bere neurrira jatxi eta errien arteko artu-emonak bide baketsuagoetatik etorriko ei-dira. Kezka nekegarria: Ain erraz gordetzen dan aberestasun au, ludian aurrerapenerako bear dan dirutza, orma zulo eta burkopeetan alperrik gordeta. Gitxiren aberastasuna askoren kalte.

* * *

Illargira eldu gara. Egun oneitan Nixon jaunak Marte'ra joateko eguna izentatu bear dau. Tresnaz zenbat gauza eder lortzen ikasi dogun! Kezka bildurgarria: Aurrerapen oneik damoen indarra gizon banaka batzun esku dagola; beste guztiok orrein zuzentasun edo zorokerien azpian urduri.

* * *

Tresna ta Tramunkulo orrein bidez, lanak bigundu egin yakuz. Neke gitxiago ta etekin aundiagoak. Kezkati ala bere: Gure aberekeri onen aldetik, berez alperrak gara, ta iñoren lepo bizi izan gura dogu. Estaduko nominatik, izardibako lanetatik, liberatu izatetik ta ainbeste bigunkerietatik bizibidearen billa. Ta ez gara arduratuko orretatik lortzen dogun dirua, besteren baten izardiak egiña dala jakinda?

* * *

Konsilio ondoren ara noraiñoko bide-barritze, gaurkotasun eta bat-baterako esnatze. Kezkati baiña: Jaungoiko ezetzkeriak bere alde guztietatik zirika. Naizen au eta inguruan daukotazan guztiak utsetik etorri garala ziñistu bear ete-dogu barregarri?

* * *

Erri-ikastoletan laster bilinguismo orren bidez, guk ikasi eta apaindu ezin izan gendun euskera maitea, gure ondorengoak ikasiko ei-dauskue. Izango ete-gara edertasun au aurrera eroateko lain?

ORBEL-ZAARRA

IDAZLE GUZTIERI

Euskal idazle asko dagoz Bizkaiko erri geienetan sakabanatuta. Batzuk, ezagunak, euren idazlanak idaztietan edo aldizkarietara bialduz argitaratzen dabezanak. Beste asko oraindik ausartu ez diranak edo bialdu badabez argitaratu ez dautsezenak, ukamen orreri argibidea emon barik geienean; zuzendari askok ez dau erantzunik edo lanik biurtzen eta orrela azpertzen dira, asikeran, idazle izan leikezan asko.

AGUR aldizkariaren elburua euskera bizia sendotzea dalarik beragaz arduratuta dagoan batzordeak argi ikusten dau biderik egokiena zein dan: idazle barriak sorteraztea.

Badakizue ba idazleok, emen arrera ona izango dozue ta zuen lanak argitaratzen ezbadira erantzun bategaz biurtuko jatzuez.

Gu ez goaz lege esturik jartzen; bakoitzaren nortasuna aintzat arturik azalduko dogu baña aurretik jakin bear dozue erriko euskera erabili ta bizkaieraz egingo dogula.

Beste euskalki edo ortografiko idazleak or daukiez beste aldizkari edo argitatzalleak.

Gure asmoekaz bat eginda bazagoz! Asi ainbat ariñen lanak bialtzen!

Gaur zoritxarrez uiola baltzak datoz gure kultura ibaietara, euskal erriaren izakera atzerritarren oitura, abesti, bizimodu, elerti eta abarrek urtu ta ezereztuteko arrizkoan jartzen dabenak; baña ez da olakorik gertatuko danok alegintzen bagara.

Gure ustez kultura, izkuntza, ikastolak eta beste gauza asko ez dira politikeagaz edo taldekeriakaz nastau bear: Lelengo ta bat guztiona dana nastatzea kaltegarri izango litzake ta bigarrenez lege barruan jarraitu nai dogularik izkuntzaren zabalkundea utsik eta garbi elburutzat artzeko eskatzen dautsugu guztiori.

Azken oar bat: Batzar Nagusi batera deituko dautsugu laizter, baimenak lortu ondoren, lelengo bizkaikoari ta geroago Euskal-Erri guztikoari.

AGUR

LAZTANA NEUREA

Zelai zabal aretan
Kabirik txukunena
Neukan aukeratua,
Laztana zeurea.
Loraz inguraturik,
Baratz eder batean
Agiri zan kabia,
Zerua bailitzan.

Beragandik ez urrin,
Goialde bedartsuan,
Zugatz tantai arroak
Ikusten zirean.
Urretxindor alaien
Abesti gozoenak
Entzuten ziran berton
Goizetik gaubera.

Galeperrak ostera,
Euren pospolinketaz
Alaitzen eben sarri
Solotik etxea.
Ur gozodun iturri,
Errekasto bizkorra,
Murmurioz abeska,
Entzuten genduzan.

Atsegin-baratz urak,
Benetan zirudian
Biotz ameslarien
Egongu yatorra.
Gogo-kezkarik gabe,
Bakez eta atsegiñez
Bizi giñian biok,
Aingeru bezela.

Antxen dastatu neban
Biotzaren eztia,
Antxen ezautu neban
Zure maitasuna.
Yoranez eta gogoz,
Egunez eta gabaz,
Maiteki esaten neutzun:
Laztana, neurea'

Arruza'tar Mikel

E U S K E R E A

Euskera nora zoaz?

Zenbat eta zenbat alperriko berba egiten ete da euskera dala ta eztala!

Batzuen eretxiz, gatxa dala ikasteko; beste batzuentzat ez dabela ezertarako balio; emengoak garbi egin bear dala; angoak, erdi-erderaz egin bear dala ta abar.

Bitartean, izkuntza atzera doa, noren erruz? Lege batzueri botatzea erreza da; ez ainbeste egia noren aldetik dabillan jakitea. Sarritan, geure burua zuritzeko erabiltzen doguz.

Baña, bear dan lez, astertzen ba'doguz euskeraren kezkak, eunetik berrogetamar baño geiago geure bizkar-gain artu bearko geunkez.

Baserritarren seme-alabak kaletar biurtzen doaz apurka-apurka. Gernika'ra, Markiña'ra, Mungia ta Zornotza'ko landegietara, eurrez doa jendea. Ta ortxe asi oi da euskeraren kurutzea. Uri-buru orreik euskaldundu bearrean, datozanak erdelduntzen dira. Erderaz egin eziñik ibili arren, umeeri erderaz erakusten dautsie, zoritxarreko konpleju orrek bultzauta. Sarri askotan iñoren aurrean euskeraz egin arren, umeek erderaz erantzuten dautsie. Ez etxean euskeraz egingo baleutsie!

Ori baño txarrago, erri-buru geienetan euskerazko ikastolak daukiez, baña eurak, monjetara bialtzen dabez. Emakume ganorabakoak!


Bilbon eta beste uri askotan badago euskeraz ikasteko zaletasuna, baña izkuntzaren oñarri ta suztrai jatorra baserrian dago, an bizi da oraindik euskera, ta il zorian egon arren, errez barriztu leike sua; an bai dago izkuntzaren jakituria ta aberastasunaren iturria.

Beste kezka bat, aboz erri-zale diranena da: Seme-alabei, euskerazko izen dotoreak ipini ta «agur ta eskerrikasko» esaten irakatsi... besterik ezta pentsau be, obeto ingelez naiz prantzez irakatsi! Orlan jokatzen diran gurasoak, erdeldunak ba'dira... pekatua bai, baña ez astuna. Ostera... euskaldunak ba'dira, orrein pekatua parkatzeko Aita Santurik be ez dago, izadiaren kaltez egiten dau pekatu-ta!

Irugarren kezka geure arteko griñak, nortasunkeriak, taldekeriak. Orain arte, garbizale ta mordollo-zaleen arteko burruka izan zan garrantzitsuena. Amaikatxo alperriko orri bete dira orretzaz, izparringi, aldizkari ta idaztietan.

Gure uste apalean, erdiko bidean, erri jatorrak gordeta eukan izkuntzan egoan egia. Baña kezka oneik gitxi ziralarik, orain gogorragoak eta bear ba'da kaltegarriagoak sortu dira, izkuntzari kalte galanta ekarriko dautsienak.

Ona emen argi ta garbi zeintzuk diran eta zelan sortu diran: Iru edo lauren eretxiak, ez ditu beste guztienak zapalduko.



«LIZARDI»



ARRUZA'TAR MIKEL

Goi mallako euskera batu bat lortzeko naia ez da gaurkoa. Literatura, euskeraren batasunerantz eroatea, gure izkuntzarekin arduratuta gagozan guztion betiko asmoa izan da.

Alegin asko egin dira, baña batasun ori ez da erreza, ondo egingo ba'da beintzat. Edozelan, andik eta emendik apur bat artu, naste-borraste bat egin ta »euskeranto» antzeko izkuntza barri bat lortzea ez da ain gatxa, baña »berbeta» orrek ez dau sustrairik izango, artifiziala izango da, ez da euskera bizia izango, naiz eta idazle askok orrela idatzi; urte batzuk barru, idaztegietan, biblioteketan pillotuta agertuko dira idazti orreik, ta, bitartean, egizkoa dan izkuntzak geroago ta atzerakada andiagoak egingo dauz.

Jokabide onen aldekoak, Arantzazu'n, Euskaltzaindi ta idazle batzuk antolatu eben batzarreko erabagietan oiñartzen dira, baña Arantzazu'n Euskaltzaindiak ez eban erabagirik artu. Danetarikoak batu ziran an, ez euskaltzainak bakarrik; eta gazte talde baten indarkeria ta Mitxelena jaunaren bigunkeriz (biologiko neurriak aintzat arturik) «literatura euskerari» «h» batzuk sartzea begi onez ikusiko zala esan zan.

Ori dala-ta zoritxarreko H ori idazlan eta ikastoletako idaztitxoetan sartu da; zertako? zer dala-ta? H zaleak diñoenez batasunerako, mugaz-andiko euskeldunak erabilten dabielako ta antxiñako idazle batzuk bere sartzen ebelako. Ederra kontua! Euskaltzaindiak, berak, orain urte batzuk artutako erabagiak, danak ankaz gora! Gauzak errezago egitearren ainbat izki ta idazte erregla kendu doguz eta orain H ori sartu bear ei dogu... Badakizue zergaitik? Lengo idazle ta batez be »irakasleari» aurka egitearren. Ori, euren artean, abo batez azalduko dautsue H zaleak.

Orain arteko guztia burgesaren alperriko lana izan ei da. Ta gaurkuok, izki ori nun ipini bear dan ez dakie geure antzera.

Denpora asko ez da, Alemania'tik bialdu eben idazlan bat esanaz: «Euk ipiniozak hacheak bear dan lekuan».

Eurak ez badakie, besteeri ta batez be aurtxoeri, zelan irakatsi? Laster izango dogu gure izkuntzan euskalki antzeko barri bat: «Euskeranto».

Batasuna? Iñoiz baño urrunago, goitik bera indarkeriz sartu nai bada beintzat.

Naia lortzen ba'dabe, zer? euskerea ondatu ondoren iraultza garaille? Ez dot uste alakorik baña gure izkuntza bai galtzalle.

SUGAR

UDAGOIENEZ ERREKA-ONDOAN

Atzo, beko errekara joan nintzan. Atxurdiña-tik datorran errekatxoari alan deritzagu leenguok. Zugaitzak billoizten, udagoiena da ta. Antxe jezarrita orri-jauskerako gogorakizun batzu etorri ta idatzi nebazan, Zabalazpian.

Maria Dolores Praderak ain bikainki abestu oi dauan «Ibaiarena» bururatu ta ausnartu: «Tú que puedes, vuélvete, me dijo el río llorando, los cerros que tanto quieres, me dijo, allá te están esperando».

Gure errekak, atzera egiterik ez dau; urak, joan ta joan doaz Gaminiz aldera, an itxasoan galtzeko. Orbelak beragaz eroiazan; ainbeste aldiz ikus dodaz orbelok, urteoro beiak-bera.

Gizonok, une bateko ekintza aldatu geinke, bai, urak eziña. Baiña guk be geure leengoa, ibaiaren antzera, geugaz daroagu, ezin galduz. Urteak, argiñaren antzera, mallukada bakoitzean geure nortasuna moldatu dauskue. Bakoitzak geurea: leengoa, uka-eziña.

Gizon bakoitzak leena ba dau, erriak bardintsu. Erri bakoitzak bere atzea dau. Aldi ta alde bakoitzeko erriak, beren seme-alabok emondako leengoa. Gizonok, leengo orri zor dautsagu garantxuaren erdia, gitxienez. Guraso, irakasle, aberri-guraso, erria bera, dana leengoa. Orrez gaiñera, geure alegiñak beste apurtxo bat, areina onartuaz, edo areinetik alde egiñaz. Areik egiña, maite nai gorroto izan, emen doa geugaz edonora; gu nora, a be ara.

Akatz andiak direala leengoetan? Badaiteke. Alan be nik neuk, gure aldikoetan beste ezetz, esango neuke. Zer esan dot? Zaarra ete naz? Burgesa ez ete naz? Enoa esana aldatzera. Orixe idazle andiak idatzi ebanez «dagona bego».

Gure erria, Euskal Erria, ain zaarrik ez da Europan gaur bizi. Gure beko errekaren antzera, gure erria be aurrera doa. Amaika zauri, zigortada, matrailleko ta etoikeri goituaz, aurrera Ama.

Ta bakoitzak iñori agertu ezin dautsoguna daroagunez, alantxe gure erriak. Guk aaztu nai geunkezan asko, aaztu ezin doguzanez. Euskal Erriak be ez. Euskal Erria elitzake bera izango atx-zuloetako aroa ukatuko bageuzkio. Elitzake bera, kristautu zaneko aldia ukatu ezkero. Bere bizkarrean daroaz, aspalditik estutzen daben kateak; bereak Oiñaz ta Ganboatarrak, bereak Karlistadako egunak, bere-berea 1930'etik 1960'rartekoa (1936'an jaioa nozue)

Oraingoan, eskuratu iatazan zabalkunde orri batzu, Euskal Erriaren leengoa aaztu edo ukatu egin gura dabela dirudi.

Gizon ospetsu batek idatzi ei-eban: zentzunbako erriek bakarrik, euren leena ta leengoak ukatzen dabez.

Gurean badira diñoenak, gaurrarte olerkaririk ez dogula izan. Gaur ori, 1960'tik onantzekoa da. Idatzi barriz, ez dala euskeraz gaur lez iñoiz be egin. Leenago euskeraz idazten eben geienak, burgesak ei-ziran, eta burgesiaren aldezkoak.

Eztogula egin ondiño, erriaren edesti sakon bat, diruan oñarritua jakiña; «ekonomiku indarra» bai-dogu biziena. Oneik eta milla pestakoa dabela Jainkoa diñoenak ez ete dira urrean bizi?

Azkatasun itza ta injustizia, ez darabillezan olerkariak eta bertsolariak ez ete diran izan gurean oraiñarte?

Ez ete da itsukeria gure lengoan ezer onik ez ikus-gurea? Itsukeri andia ez ete da zaarrei, euren zaartzaroa baiño ez ikus-gurea?

Arinkeria ez ete da, oraintxe asi garala Erria egiten esatea? Gure Erriak baiño edesti bikaiñagorik zeiñek?

Gure errekatxoak, atzera egiteko diñaust. Badogu bai, atzera egin bearra, zentzuna galdu gendun egunera; auzokoak maixutzat artu ta euren esanera jarri gintzazan ordura.

Errekatxoak beragaz eroan dauz ainbeste urtetako orbelak; gaurarte orbel euskaldunak. Gaurtik aurrera, noizarte ez dakit, orbel erdaldunak; Urduliz-en gaur, erdera nagusitu da ta.

GARITAONANDIA'TAR GOTZON

Labur... baña argi ta garbi

ZENBAT ZUBI?

Abenduko Zeruko Argiaren zenbaki baten Artetxe Jaun idazle ospetsuak gazteen ta adiñekoen artean zubi bat bear dala diñosku, ainbat ariñen egin bear dan zubi bat.

Jaun jakintsu askori bururatzen jakez olakoak ta, egia esan, ez da arritzekoa, bitarteko leiza ori dan baiño sakonagoa ikusten dabelako. Mundu guztian ,entzute aundiko kristauak marxista antzeko gazte mordoagaz inguratuta agertzen dira beti. Norberaren bidera ekarteko? Bai zera! Sasi-jakintsu orren eldu bako pentzamentuak itzalpe ederran jartzeko.

Baña nere uste apalean gazteen ta adiñekoen artean ez dago orrenbeste ezbardintasunik ta askotan zubi bat barik bi egin bearko doguz: gazteak batetik joan ta azpertuta, bestetik etorri daitezan guztion jatorrizko etxera.

AINGERU TXURIA'RI BURUZ

Zeruko Argiako beste idazlantxo bat irakurri dogu, Satrustegi Jaunarena. Bertan diñoan lez, aspaldiko egunokaz arrizkoan dagoz ikastola batzuk, euretan andereñoak Kristo'ren bizitzarik ez dabelako erakutsi nai; Satrustegi Jaunak aitatzen dabezan «aingeru txuri» orrek ez ete daukez atzetik zirikalariak? Eleiza'ren babezean dagoz geienak, ikastolak, eta eleizea aterpetzat artu ta abadearen sotanapetik Jaungoikoa ukatzen ibilteari ez deritxot joko garbia. Zergaitik ez, diran lez agertu? Satrustegi Jaunak azpia apurtxo bat aztertzen badau laizter billatuko dau erantzuna.

EUSKAL IDAZLEAK

Ez dakit iñoiz eta iñun Euskal Errian gertatzen dana gertatuko dan. Euskeraz tautik ez dakian gazte bat asten da ikasten eta zoriongarri dan almen ta borondateagaz ikasten dau apur bat; andik urte parebatera or daukazue idazle barri bat eta ganera bizkar ganetik bera edozeineri begiratzen. Bere lelengo lana: aurretik izan dituan idazle jatorrak menperatzea; Domingo Agirre, E. Bustintza, Lauaxetak eta abar idazleak egiten eben euskera utsa, erri-kutsu bakoa eizan...! zekula olakorik! Ez da arritzekoa, arek ez eben aitatzen gaur modan dagozan ainbat berba: «realitatea», «imperialismoa», «aliena ziñoa», etab. Arlo onetan alegintzen geran gazte guztiok lelengo egin bearko dogun lana euskera ondo ikastea da... bestela, ondo dago etorkizuna gure eskuetan badauka!

Piper - Ziri

JAKIN-AZTEKO OARRA

«Derecho del público» idazpuruz, irarkoletarako, 1966'gn. urtean, Epallaren 18'an emondako aginduak, 27 garren atalean, lenengo lerro-aldean, diño: «Albistari-Elkarteen urteroko Kontu-libuaz gain, leku agirian jarriko dira, irakurleen jakingarritzat, aldizkariaren zuzendari ta enparauen izenak; baita o/o 10'en neurrian Elkarteko baltzuko diradenak. Dirutzaren barri be emon bearko dau».

Agindu orren betegarritzat, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k, jakin azten dau, zuzendari ta irarle, José María Martín de Retana, dala lege-gizon ta izparkaria; diru-zaiña, Eduardo Francisco Martín de Retana; aldizkari-zuzenbidea, lege-arauz, Zalla Bizkaia'n daukala; dirutzarik eztaukala; norberan irarkolarik bez irarteko. Orregaitik, «La Editorial Vizcaina, S. A.» (Particular de Costa, 10) Bilbao'n irartzen eban itunben-bidez.

Irabazirik izan ezkero, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k, eralgiten dau, euskal-jakintza zuzpertuteko liburuxkak zabalduaz.

1969, gn. urteko Urterrillaren lenengoko, diru gora-berea: ERALGIAK: Papeletan, 200.000 peseta; liburugintzan eta irarten, 653.481; argi-irarki ta argazkidatziak, 250.000; langaiak, 100.000; zabalgundea, idazkazal, sellu, langille ta abar, 154.201; aintxiñako agiri, laguntzak eta abar, 50.000-BATUAK: 1.407.682 peseta.

SALNEURRI: 5 pt.alea.

IRARKOLA: «La Editorial Vizcaína, Sociedad Anónima», Bilbao.

ARGITALDARIA: «Editorial La Gran Enciclopedia Vasca», Zalla-Bilbao.

Dep. Legal BI 879-1966.

JAKINGARRIAK

Kontzientzi baten kezkak

Euskaldunon artean, ez dakit beste errialdeetan zenbatirañokoa daiteken, baña gure artean euskaltasuna, euskaldun izatea biotzaren jabe izan yaku. Beragaz batera izakera ori biribildu dauan lurra: mendi, ballara, itxaso... ezin ba, urriñetik ere ganetik kendu. Olerki, bertso... Ba liteke aurreko urteetan apolojistak eraiñeko aziaren frutua izatea be.

—Nor zara? Nungoa zara?

—Euskalduna! erantzuntzat.

Kanpotik etorri diran asko be kontzientzi onen jabe biurtu dira.

Baña, zoritxarrez, euskaltasun au konzepto uts bat dogulakotan nago. Alan gertatzen da esate baterako euskera adibidetzat artu bearrean, erderaz euren buru »jakitunak» zuritzen ari diran guztietan. Baita, txikitatik iñoren erru aundiz jakin barik gelditu ta ikasbide errezak euki arren alegintzen ez diranetan Euskaltasunaren kontzientzi au soiñeko pitxi bat biurtu yaku ta olan jarraitzera modatik igarotzeko arrisku aundia dau. Lenengo pausoak agerian dagoz. Raza aldetiko euskaldunak ba'doaz. Gure euskaldun odol garbidunak euren euskaltasunaren agerbidetzat ezin dabez zortzi abizenak bularrak irripar lelo batez putzituta aipatu. Orren aroa joan dala uste dot, ta alantxe izan biar be, materi guztiak aldakuntza bai dau legetzat. Ezin ba geuk be odol ta garezur baten neurrietan euskaltasun ori oso-osoan oñarritu.

Joan zan baserri aroa. Baserria euskaltasunaren salbabidetzat artuta alegia. Guzti au folkloretuta geratu yaku. Ta onek joan dakoan, beste ager bide bat asmau bear, ta politika usaiñeko batek bidea iriki ete-dauan nago, edo arriskuan gagozala beintzat. Ta ez litzake txarto izango; batez be euskaltasun ori konzepto utsean geldituko ez ba'litz beintzat. Gizaki politiku ori, gazte ori olan naiz alan euskaldun agertzeko euskaltasun orren jabe izan bear dau, ez uste izan lortuta dagonik zirkunstantzi baten jabe izateaz. Euskaltasunaren agerbide guztiak ondo dagoz ta batzuk bearrezkoak barriz.

Euskaldunok, olan agertzekotan beintzat geure nortasunaren jabe biurtu bearrean gagoz, beztela IZAN ZAN ERRI BAT... Gure Nortasuna! Erri baten nortasuna bera osotzen daben gizakiak darakustela iardetsiko daustazu. Alantxe izan be, baña zerbait geiago erantzi bear orreri. Erri baten nortasuna, beraren asieratik bizitu daben persona guztiak osotutakoa izan bear. Ta ementxe gure pekatua. Eun urtetik, berreun urtetik onakoak osotu dabe gure nortasun au, ta zoritxarrez orreixek be ez. Ara zegaitik. Lenago Euskalerria baserrika ta erritxoka zenbatzen zanean naikoa zan subazterreko aittitta aurretikoen agindu, oitura ta gañetiko estrukturak erakusteko. Baña soziedadea ugaldu ta nastau danetik, irakaskintza etxetik ikastolara aldatu da. Irakaskintza ez-ezik ezikera guztia be bai (Ta euskaldunok geure ikastola ta ezikera baten jabe bear giñakenak, geureaz etenda beste baten jabe biurtu gara edo biurtuazo gaitue). Ona emen zegaitik mende batetik onakoen nortasunaz gelditu garean, gelditu garanok ori. Geienak, izenagaz bakarrik jarraitzen dabe ta olan jarraitzera: IZAN ZAN ERRI BAT... Baña au ezta gertatuko! Ainbat lasterren aurretikoekaz, orain 15.000 urte Erri au osotzen asi ziranakaz ta aren ondorengoekaz lokarri bat bear dogu, EUSKERA alegia. Onegaz batera gizon orrek bere nortasuna, guztien nortasuna, mamitzeko erabilli dauazan bideak: Kondaira bat alegia. Bai naiz Santimamiñen, naiz Baltzolan, naiz beste lenengoko euskaldunen «etxe» orreik ikustera goazanen arri polit batzuk, edo zulo aundi batek daragian zirrara barik beste «Zer» bat nabaituko dogu barruan «Zer» ori barriz ondorengo Baserriak sendotuko dau, baita izen-abizenak eta politika sendo ta zuzen baten bidez ikastola, unibersidade ta gañetiko bear doguzan estrukturetan mamindu, au da, euskal nortasunean gizona ardatz arturik beraren onerako ekingo dautsen gañetiko estruckturak. Ta nik otoitz baten amaiera, besterik ezin esan au amaitzeko: Alan bedi!

J. I. SARRIONANDIA

GAURKO SAMARITARRAK

LEGENARDUNAK

Gizasemeen alkarrenganako errukia-maitasuna larregitxo ete-dan ba- makal eta lotsagarri agertu izan da beti, ta beti agertuko da. Bene-benetako estu-larrietan geyenok errudun agertzen gara, banaka batzuk oso-osoan anayentzat anai ba'dira bere. Ain izaten dira gitxi, besteon makaltasuna ugaritsu ta nabarmen agertzen dala, Jaungoikoak jarrita-edo, gizaldietan zear legen-baltzez «zikinduak» inguruan izan doguz, eta bildurraren bilburrez etxetik eta urietatik urriñera bota. Olakoetan maitasunezko eta anaitasunezko asmo, itzalper eta nor-geyagoak ezebezetan gelditu izan yakuz lotsagarri, eta bada-ezbadan gure «protestak» orreingadik urrin eta epeletan egin izan doguz.

Tira baiña, ba-dabiz batzuk gaixo orrein onerako alegiñak egiten eta gure gogameneko arrari atseden pixka bat ekarten. Ogetasaspi atzen urte oneitan sendagailluen bidez leganarra osatu al izan da, batez-bere asieran edo barria dan artean osagailluok zintzo eta luzaroan artu-ezkero. Geroago zabaldu eta ala-bere benetan gaiztoa dan beste eri bat, legen-zuria ba'litz lez ta bularrekoa deritxogona, makal edo gogor, danean sartu izan yaku, ta onek atzituak basamortura ez ba'doguz bota bere, bai besteongandik aldendu gaixotegi politetara, eta Koch zanaren bazillo orri azelako astinduak emon dautsaguzan. Ara baiña, Koch'en ziritxo ori eta legenarra dakarren a, ur-urreko senideak dira, jakitunak talde baten alkartuta jarri dauez.

B. C. G. ZAINDARIA

Aspalditik, bularreko gaixoa bastartzeko asmoan, aurreri B. C. G. (Bacillus Calmet-Guerin) ziritxo illak edo erdi-illak narrupetil -ezarten dautseez, eta arrezkero, aundi geiterakoan eri-zuri gaizto orren oinpean legokezan, eunetik larogei azkatu al izan dira. B. C. G. ziria ta Koch'ena anayak lez dira, ta bion senide-urreko legenarrarena. Senidetzazko ori gogoan artuta, inglandar sendagille batzuk Uganda'ko amar milla ume B. C. G.'agaz narrupetik zirikatu dauez, lurralde orretan legenardun asko dago ta umeak guraso edo senide «zikinduen» artean bizi dira.

Asmo bi darabillaz; batetik bular eritik azkatu ez da baiña au garrantzikoena, bestetik, ta au bai izan dala eragille nagusia, ea ziritxo senide onek giza odolean soin etsai edo anti-gorputzak sortzen dauazan, Koch' enak ez-eze legenarra sortzen dauazenak burrukatzeko asmoan. Ta ara zer ikasi dauen: Iru urte t'erdi igaro ondoren, zirikatuetatik 19 gaixotu dira, ta B. C. G. barik egozanen beste amar millatik 143, orretara eunetik larogei baiño geyago azkatu al izan dauez legenarrak arrapatzetik, eta itxaropenez aurrera daroez euren lanok.

Orain zebat urtetan eta zelako indarrean B. C. G. orren eginbearrak eusten dauan jakin gura daue, orretatik legen-baltz eri gaiztoa ezebezteko aurrerapen aundia letorkigu-ta.

IBUR

NERE KONTU-EMATEA

Euskaltzaiñok:

Iru urte dira, Euskaltzainburu naizela. Bitarte ortan zenbait gorabera izan degu Euskeraren problematikan. Egoki izango da, gora-beera oiei buruz, nik bere deskargutxoa ematea, zuen aurrean.

Urte bi dira, Bilbao'n egindako, Urtarrilleko Batzarrean, Euskaltzaindiaren *berrogeitamar urte* betezearen gogoangarri zerbait berezi egitea erabaki zala. Asmo bat, batez ere, artu genduan danok orduan: urtearen barruan Euskeraren *batasunari* buruz zerbait eratzea.

Gauza garrantzitsua zala esan zan; baña baita kontuz egin bearrekoa ere, batasun-eratze ori. Gogoan izango dezute noski gustiok, Batzar artan bertan Arrue Jaunak esan zuana: «Euskaldunok, olako gauzetan «anarkixta xamarrak» gerala. Batasuna, norbaitek proposatzen zuan bezela *por decreto* egiten asten bagiñan, orixe naikoa izango zala jendea kontra jartzeko.

Xenpelar bertsolariak esan zuana:

«Gaitzak gerala umiltzen

eta pakean unitzen».

Neronek ere gauza bera esan nai izan nuan. Arantzazu'ko Batzarreko Sarrera-Itzaldian, *Oñeztarren ta Ganboarren* arraixkoa aipatu nuanean.

Arazo ontan arraixko ori baztartzea izan da nere ardurarik aundiena, ordutik onuzko urte t'erdi otan.

«Por decreto ta diktadoreki gauzak egitea» galerazi: Orixe izan da nere ardura. Ez dakit logratu dedan.

Arantzazu'ko Batzarrak bukatu bezain laister, batzuren batzuek izugarrizko pozez asi ziran, ango, Mitxelena Jaunaren erakutsien «conclusioak» mundu guziari ezarri bearrez. Ezartze ori, eta batez ere presaka ezartzea, orixe da, ezer bada-ta, diktadura. Ori iñolaz ere galerazi bear zan. Nik ortara jo det, batez ere, nere alegin guztian. Presaka ez da ezer onik egiten auzi auetan. Mitxelena Jaunaren iritziaz gaiñera, beste iritzi geiago ere entzun bearra zegon. Ortarako, beta artu bear da. Ponpeo Fabrak Katalanaren batasuna egiteko, amar urteko epea eman zuan, erriari kontsulta egiteko, erriaren plebiszito praktiko bat lortzeko.

Gure artean —esan det— alderdi batekoak bereala asi ziran, beren aldeko lanean. Eta berak beren aldetik asiaz gaiñera, Euskaltzaindiak Arantzazu'ko «conclusio» aiek guztioi ezartzea, guztiok Euskaltzaidiak ortara beartzea nai zuten. Nere iritzia gai ontan, bestelakoa izan da. Ponpeo Fabra'k bezela, itxedon, erriaren postura ikusi arte: diktadurak baztartu; itzi guztioi itz-egiten.

Ni bildur nitzan bezela, Arantzazu'n bertan azaldu ziran bi alderdi: *Oñez eta Ganboa*· Etzan arritzekoa an gauzak planteatu ziran bezela. Gai garratzak erabilli ziran: garratztxoak, alderdirik ez sortzeko. Aditzaren arazoa baztartu egin zan, gai zailtxoa zalata; baiñan ori bezain zalla dan H.ren gaia ukitu zan, gai teorian errexa Mitxelena baten eskuetarako; baiñan praktikan zailtasun aundiak dituana: gutxienez bi gizaldi —berreun urte— Bizkaian eta Gipuzkoan erabilli ez dan elementu bat, orain, bat-batean, gabetik goizera ezartzea... Gauza zalla benetan... Eta bereala etorri zan, ni bildurtzen ninduana: *Oñaz eta Ganboa*. Guztiok zerate testigu. An bertan. Eta gero, ondoren, zer esanik ez.

Orain galdera bat: Zer egin bear zuan Euskaltzaindiak arazo ta ereti ortan, bidagurutz ortan? Batzuen alde eta besteen kontra bere burua azaldu?

Nere iritzian, Euskaltzaindiak *neutral* izan bear du olako auzietan, eta ortara saiatu naiz ni alegin guztian: neutralidade oni eusten.



Lekuona Jauna
Euskaltzaindiko Lendakaria

Euskaltzaindiaren egitekoa, auzi ontan, guztiontzako alkar-izketa-giro bat sortzea da: alkar-izketa-giro paketsu bat. Auzi zailla dan ezkero, utzi guztioi itz-egiten; entzun guztiona.

Arantzazu'n, alderdi baten itza entzun zan, batez ere. Beste alderdiarena ere entzun bearra zegon. Eta ortarako ekilibrio on bat izateteko, bear dan beta artu. Luzatu bear bada, luzatu. Gauzak diktadoreki egin, ez. Ori izan da —diot berriz ere— nere ardura urte t'erdi otan.

Batzuren batzuek, Euskaltzaindiak bereala, zirt-edo-zart, erabakitzea naiko zuten. Alde batetik eta bestetik. Ponpeo Fabra'k —leen ere esan det eta— Katalunia'n amar urteko epea eman zuan. Eta amar urteren buruan, balantze bat egin, erriak zertara jotzen duan.

Bide luzea dala: Sobra dakigu. Baiñan, gauzak diran bezela artu bearra dago. Bereala eta *por decreto* gauzak egiten asteak, ba dakigu zer dakarren: Xenpelar'ena:

«Gaitzak gerala umiltzen...»

Arrue Jaunak esan zuan. Bañan ez Arrue Jaunak bakarrik; Mitxelena Jaunak ere, bi edo iru aldiz, gauza bera esan zigun. Ez bera, ez Euskaltzaindia, ez dala nor, bere conclusioak iñori ezartzeko... Berak ere etzuan nai diktadurarik. Ezarri ez. Arau batzuek eman, ori bai. A. Villasante'k itz bitan esan zuana: Mitxelena Jaunaren Ikasgaiak, «valor normativo» dutela, ez «valor preceptivorik». Gu ez gera nor, gai ontan agintzeko. Euskeraren «jaun-da jabe», erria da, ez gu.Guk ezin dezakegu agindu. Bide bat erakutsi bai. Bañan guk erakutsitako bide ori, erriak jarraitu bear du. Eta jarraitzen duan ala ez, praktikan ikusten da.

Orain praktikari buruz zer? urte t'erdiko praktikari buruz zer?

Nere itzak ez dezala iñor ofendi. Bañan esan bearra dago. Batasuna egin naiean asi giñan. Nik uste ez genduala bide ona aukeratu. Ortigrafi-gaia ukitzean H'ren auzia ipiñi genduan mai-gañean. Zoritxarrean. Batasuna sortu bearrean, bitasuna sortu zaigu. Eta nolako bitasuna! bitasun psikologikoa, asarrea, burruka...

Urte t'erdiko experientziak beste gauza bat ere erakutsi du: ez H'ren arraixkutasuna bakarrik, H'ren zailtasuna.

Batasunak bi gauza eskatzen ditu batez ere: Oiñarri zabala, eta denbora, denbora luzea. Ponpeo Fabra'ren pazientzia ta egoarria

Orra nere iritzia itz gutxitan.

Eta orra nere iru urte oietako deskargoa.

LEKUONA'TAR MANUEL'EK
(Zeruko Argiatik)

ERRIETAKO BARRIAK

Arratia

Arratia'rrak: Tinko. Gaurko ontan enatorkizue emengo ta ango barriak emotera. AGUR illero agertuko dan (ostoporik ez badau) aldizkari barri onegaz bat eginda Udabarri-zorionak emotera nator.

Bizkai'ko ta Bizkai'ko ez diran edo izango ez diran barriak izango doguz bizkaieraz idatzita. Begientzat lan erreza, buruarentzat ulerkorra eta biotzaren pozgarri izango yakuzan arlo samur-asegarriz beteta jagiko da illean bein.

Atxakizko izki (letra) uts eta uguzi edo ezan ezin dogunik ez dauala erabiliko esan dausku, eta itxaropen oso-osoa dot beteko dauala agindua. Eta olan izan ezkero, nai ta nai ez izan, bearko dau gozoa, nekerik bakoa, argia ta samurra.

«Euskeraz irakurtzen, eneban ikasi: begiak ez dodaz ezita euskerara; gipuzkeraz gatxa dala» t.a., amaitu dira AGUR-egaz.

Asi zaitez ba, arratiar euskalduna, euskeraren ume barri au laztandu ta maitatuten. Ezegizu egin atzerakadarik. Orraztu sakoneraño zure izkuntz bizkaitarra ta bizkaieraz idatzitako lanak. Aolku au, apaltasunez emoten dautzudan agindu au gogo onez beteko bazendu, etxeko ta ezagun izango litzakizuz, bai-ta errez, Gipuzkoa, Naparroa naiz Lapurdi. Au egingo dogunean, lortua izango dogu euskera bateratua; gogorrean, indarrean ta andikerietan burua erakutsi barik egindakoa. Ikasi daigun ba, geurea maitatuz, auzoentzako begirapena izaten.

Basa-piztien gogo-biotzak, gogorkeriz ez dira irabazten; askozaz gitxiago zentzundun abereareenak.

Eta amaituteko. Gogoan izan irakurle, illero agurtuko gaituzan AGUR-en jokabidea au dala: ezjakinentzat, erreztasuna; alperrentzat, gozotasuna; eta bake zaleentzat azpikeririk gabeko bakea.

Udabarri zoriontsua Arratia'ri, Bizkaia ta Euskalerri osoari.

A. LANDAJUELA

Eibar

Urtero letxe, ta Aldazabal'tar Peli zanaren gogorik biziena aurrera eroaten, aurten be neska-mutikoen izkuntza leyaketa entzungarria bete da. Iru maillatako gaztetxoen artean: 6 urtera artekoak, 10'erakoak eta 14'erakoak, zeiñek baiño zeiñek zoragarriago erakutsi euskuez euren ikasiak. Tamalez, leyaketa bat izan dala, ezin daneri-70'tik goralenengo saria emon. Ara ba, alde gitxi izan ba'da be geyenen artean, batzuk goratxuago geratu jakuz, ta begira emen, maikoak erabagita, nortzuk izan diran txapeldun:

Txikienetan:

1.º Etxeberria'tar Ana Isabel, Elgoibar, ta Fuldain'dar Ander, Ermua.

2n. Etxebarria'tar Ainoa, Eibar; Alberdi'tar Roberto, Eibar, ta Etxebarria'tar Gotzon, Elgeta.

Erdikoetan:

1.º Peñalba'tar Ma. Lourdes, Soraluze.

2n. Basauri'tar Xabier, Eibar.

Nagusietan:

1.º Etxeberria'tar Asier, Elgoibar.

2n. Rotaetxe'tar Josune, Bilbao.

Lau urtedun Etxeberria'tar Ana Isabel'ek, lenengo sari orren gaiñetik, aipamen berezi bat irabazi dau. bere jatortasun eta jakintza aundiagatik.

Zorionak danori, Elosegi' renegaz txapeldueri ta alegidu diran daneri, zorionak zueri ta zuen irakasle ta gurasoeri; ori bai dala benetan jokatzea.

Orain, danok zain, Orril onen 31'n Eibar'ko kaleetan izango dogun jai goragarri orri. Gaztetxoen alaitasunagaz zarrak pozaren-pozez negarrez.

KUNBO

Bilbao

Gurasoen euskal zaletasunak dakarran giroak itxaropenez betetzen dau gure erriaren etorkizuna. Orain arte lan ori egin daben jaun-andreak, makiña bat neke, eskari, joan-etorri, diru galtze ta abar izan dabez, baña gaur, Jaungoikoari eskerrak, ikastolak aurrera doaz oztoporik geienek gañezkaturik.

Bizkai'ko erri askok lez Bilbao'ko ikastolak, legepean jarri ondoren, artu ezin aiña ume daukeez; zorioneko giro ori dala ta ez dala. Amaikatxo neurtu eziñezko ardurak bereganatu dabe, ikastola orren zuzendariak!

Orain jakin dogunez Eleizeak berak be, arlo onetako eskubidea ta bear-izana ikusi dauz. Orain artekoari «joanak joan» esanda, bere malla guztietako irakaskuntzagaz batera edo sati bat lez, euskerazkoa astea erabaki dau, bere iritziak gaurkotu nai dituz eta erri bakoitzari zor yakon kultura bidea artu.

Ori dala ta, Elaiza babesean dagozan ikastolen alkartea sortzea erabaki da. Gauza oneik obeto jakiteko, arazo onetan dabillan jaun bategana jo dogu. Ona emen bere erantzunaren mamiña:

«Eleizeak irakaskintzarako daben eskubidearen atal bat izango da Federaziño au. Gipuzkoan egin dan antzera: Eleizapean ta andik kanpora dagozan ikastola guztiak sartu al izango dira. Araudi bat aukeratuko dogu ta araudi onen oiñarriak Eleizaren eskubidea (kristau eziketarako) ta gurasoen eskubidea izango dira: Argiago esateko, gure semealabaren eziketea zelakoa izan geuk, gurasook pentzau ta aukeratu bear dogu, geu gara ba, gure umeen eziketaren jaube ta ez beste iñor, ez Estadu ta ez besterik.

Ori ikusita, Alkarte onek batzorde tekniko bat izango dau —irakasle, pedagogo ta psikologoak osotua— ta batzorde orren eskuetan egongo da textoak aukeratzea, andereñoak gertatzea, administraziñoa ta gaiñerakoak. Gero, Federaziñoan sartu nai leukeen ikastolak, bertako gorasoen artean, demokratzia bidez aukeratuko dabez euren ordezkariak. Batzorde bi oneik izango dira Federaziñoaren buru ta gidari. Gaur, ez dago ikastoletan problemarik, orregaitik gure arauak errezak eta betegarriak izango dira: Irakaskintza, Kristau bidea ta euskerea. Arauk oneik bete erazteko batzorde teknikoak indar guztia izango dau.

Asmoak? Apurka, apurka asi, al badogu parroki bakoitzean edo geienetan parbulario bana sortu ume txikitxuentxat. Begoñazpiko parrokian ikastola «bide erakustaille» bat izango dogu; etxe ederra, aize-begian, leio zabaldina, andereño arduratsuekaz, ta jolaserako baratz ederragaz. **Ikastola au Urrillean zabalduko da ta zenbat ikastaro izango dituan gurasoen eskariak esango dauskue».**

Badakie ba guraso guztiak: Informaziño billa edo bere umeen izenak emotera zenbide onetara joan bear da:

Ikastola parroquial de Santiago. Calle Banco España n.º 3. Federaziñoak, ikastola guztiak onartuko dituz, baña bere eskubideari dagokion lez araudi barruan jarriko ditu. Gaur arte legepean dagozanak jarraitu lan eder eta etorkizunezko orretan; ea danon artean Bilbao'ko umeak euskal giroan sartzen doguzan. Zorionak!

* * *

Egileor'tar Imanol euskelzale ospetsua il yaku. Ainbeste maite ginduzan eta ainbeste maite dogun gure anai nagusienetakoa galdu dogu. Ala ta be, or daukaguz bere eredu eta egikerak, nun ikasi eta zertan jarraitu. Goyan bego, ta otoitz bat eta gero arte!

ILINTI

Mungia

Euskeraren giroa

Euskal uriburu geienetan lez, jatorriz euskalduna diran askok ez dabez ikastolak aintzat artzen, baña beste alde batetik begiratura, badago kaleko gazteen ta guraso askoren artean zaletasuna. Igaz, Larramendi ikastolea ogeitamar umeagaz asi zan ta aurten irurogetamar daukaz. Datorren ikastaaron 150'era elduko dirala uste dabe. Aurrera guraso jatorrak!

Irakasleak eta idazleak gertatzen

Bardin bako langile jatorra dan Oñatibia jauna, Mungi aldera etorten da larunbat arratsalde guztietan, ikastaro laburrak beragaz ogeitamar bat neska-mutil kementsuk egiten dabez, alfabetatze aldirako ta euskerazko aldizkarietan lan egiteko gertatzen. Ori bai dala etorkizunaren oiñarriak jartzea.

Alkarteak

Beste batzuen artean alkarte bi daukaguz Mungia'n, «Anaitasuna» ta «Guri-Zer». Zabaldu ziranean, gizonak mozkortu ta etxera batzeko eragozpena izango zalakoan, emakumeak artegatu ziran. Orain ikusi danez, «alkarte» orreik izan nai izan ez, «gautxoriak» bardin-bardiñak dira; beste alde batetik, onbiderakoak izan dira sarri, bertan, erritarren arteko kezka asko konpondu izan dira; bertan egosi erriko jai, kirol, kultura sail, laguntasun, ikastolako arazo ta beste egintza goragarriak.

Abeslariak

Mungi'ko kirolariak —ostikolari, pelotari, txirrindulari ta abar— beti izan doguz famatuak, eta orain be bai, baña aspaldiko urteetan ez dogu abeslaririk izan; gaztetxoen artean esan nai dot (Larrauri'n, or dago Ormartxea ospetsua, baña au beste zenbaki baten bear dan lez azalduko dogu) orain asi diranen artean Zarraga'tar Joseba da gure itxaropena. Donostia'n, Oñatibia Jaunak ta beste amerikar musikalari batzuek onek sortutako abestiak entzun ondoren, goi maillara igoteko gai zala azaldu euskuen. Ala izan bedi, Joseba!

Kirolak eta beste gauza asko ez goaz emen aztertzen, bakoitza bere tokian jartzeko. Agur bero bat AGUR orreri, ta gure gaztedi azkar ta jatorra lanean aurrera, gure elburutzat auxe artuta: «Euskal-erriarentzat jayo, asi ta ezi».

MUNEGAIN

Bermeo

AGUR aldizkaria datorrela ta, gure erriko barriak eskatu daustez arako. Ona emen, batzuk.

Barririk entzunena ez da ona. Aurten gure arrantzaleak urte txarra dabe; antxobiek utsa emon dau ta. Geroago ta txarrago. Alan be gaur itxasontzi guztiak, Bermeo, Ondarru ta Lekeition etxean geratu dira. Arraiñik ez; gaiñera Prantziko ertzaiñak or diardue, nor atrapako. Arraiña an sartu da, ta gure gizonak ez dakie nora jo. Zorrak andiak, etorriak urri. Zer izango ete da gugaz? Urrengoan geiago esango dautsuet. Arraiña datorrenerako etorten diran motzaillak be, gaur alde egiten ikusi doguz, ikaratuta edo.

* * *

Aste Santuan, «Sukarri» taldeak, «Jaunaren Bidetan» agertu eban. Erriak pozik artu eban. Lan andia ta ederra, gure gazteak egin dabena. Bein ondo ulertu dogu, Jesus'en nekaldiak gure erriari diñotsona.

Aurrerà Sukarri'koak, eta ainbat ariñen emon eiguzue beste alako jaialdi eder bat!

* * *

Entzun dogunez gabeko ikastolak asi dira, Sukarri'koak eratuta. Ainbat gazte doaz bertara illuntzeetan, berbaldi ta ikastaldiokaz, euzko gogoa osotzeko.

Urrengoan geiago ta Agur,

TORRONTERU'TIK

Euba

Santakurutz eguna, menditik geure ibillalditxoa egin ondoren, an giñan Euba'n zer ete-zanari begira. Ta ordu onean bertaratu be, eneban uste gure gazteak, ikastaldieri eta lanari orduak ostuta, orrelako ezer egin einkeenik: Euskal-Show, talde eder baten egikizuna. Nok uste leikean olakorik gure artean zanik! Bera ikusita eta zurrut batean gozatuta, igarri neutson ikusi eta entzun ez ba'neban izan, mingarria benetan izango nebala. Ara baiña, aurretik itsua nintzan, orain, itsu dagozeneri deadarka naukazue: joan alik eta bizkorren Euskal-Show eder ori ikustera ta ez zarie damutuko. Inguruko erriren baten laster izango dogulakoan, gero arte Oñatibia eta bere neska-mutillak!

BERNAKOAK

ZORNOTZA

Ara emen barriz eskuetara Karmel aldizkariaren bigarren atala. Lenengoak arritu ba'ginduzan be bere edertasun eta jatortasun aregaz, bigarren au politagoa dala esan bear. Ez, ez da aldizkari au artu eta irakurri barik baztartzekoa; asi eta eten barik ekiñalean ososorik iruntsitekoa baiño. Ta gero, edozein alditan, ainbeste ikasgarri ta aolku-iturri billa joateko aiñakoa.

Bere gayak, danetarikoak: gizasemea Jaungoikoaren aurrean; gizasemea gizartean; gizasemea kondairan, izkuntzan, siñismenean, eleizan, jakitasunean... ta aski ez ba'litz-edo, baita kiroletan, osasunean, jazkeran eta sukaldean.

Mutillak, ez dauskuzue Karmel makala etara!

BELATXIKI

EUSKAL-MEZAK BILBAO'N

Labunbatetan:	Ordua:
Indautxu'ko Karmel'en-S. Bolibar, 4	18
Iralabarriko Pantzeskarretan-Iturriza, 4	18-1/2
Zurbaraneko Sakramentinoetan-Buen Pastor, 2	20-1/2
Igande ta jai-egunetan:	
Begoña'ko Karmel'en-Camino del Carmelo, 10	9
Deusto'ko Pelitzisimo Deunarenean-Madariaga, 25	10-1/2
Deusto'ko Kepa Deunarenean-S. Pedro enparantzan	11
Begoñazpi'ko Miren Deunarenean-Begoñazpi	11
Anton Deunarenean-Santos Juanes enparantzan	11-1/2
Corpus-Christi Txadonean-M. Díaz de Haro	19-1/2

KIROLAK ALKAR IZKETA

TXIRRINDULARI GAZTEAK GAUR

Lasterkari arteko zaletsuen (aficionado) mallan, Euskalerriko txapelketa ekiñaldia dogu gaur eragilleena. Or dabiz «Kas» eta «Mueble Xey» benetako burruka beroan. Basualdo, Galdeano ta Aguilera'k aregaz, Eizagirre, Murillo ta Arrospide'k beste onegaz, arreta aundia damotse; oraingoz «Kas» da nagusi, ta lenengo tokiak berak dauz Galdeano ta Basualdo'gaz. Beste aldera, lasterkari bi onein goragoko maillara joan bearrak, txapelketa onetatik alderatuko dauz, ta norgeiago onen jarraierak galda gori-goriaren itxurea artuko dausku.

Gaztetxoen maillan, Bizkai'ko Federaziñoak eragin daben erabarritzea da aipagarriena. Sei gaztetxoen talde eratu dauz, Bizkai'ko Alkarteen babespean. Ta danon artean. «Goimar-Mungia» taldea agertzen yaku bizibizi. Bere Bizkai'ko garaipenak ez eze, baita Gipuzkoa, Santander eta Logroño'ko lasterketetakoak beste taldeentzat bildurgarri biurtu dabez. Talde onetako birek, Francisco Calvo eta Paulino Martínez'ek, datozan urteetako txirrinduketetan zer-egin ederra izango dabe.

BURPIL

LOTSAGARRI

Kirolak ikusketa utsera biurtzen diranean, ta txarragoa, dirubatzeko erakusketa gaizkilletara, oba etxean geratu. Joan dan 12'ngoan. San Mamesen jazoa, lotsagarria. Batzuk adar-joka ei-ebillazan, geyenak baiña, artaldeak lez, orretarako argi jokatzen dauen zirikalarieri aozpoloka jarraitzen. Belauniko parka eskatzeraiño beartu gaituzue besteok, Utikan, anayak nun diran asmatzen ez dakizueneri!

BEIZTEGI

IRIBAR, GEURE GEUREA

Guztiok dozue ezagun gazte bikain au. Edonok daki zer dan. Ikusi dau teleikuskiñatik bere goitik-beerakoa; bere arintasuna, egoale bai leukezan. Nok ez dau abestu bere izen ospetsua? Onexegaitik, gero beste batzuk egingo ba'dira be, lenengo bera ekarri gura izan dogu, gure aldizkari onen lenengo zenbakian, geure-geurea dalako.

Bere etxean aurkitu gendunean. Berak irigi euskun atea; emaztea, umetxoak lotan ipinten zan ta.

Etxeko toki egoki ta eder baten jezarri, ta alkar-jardunaldi au izan gendun:

—Zure izen abizenak?

—*Joxe Angel Iribar Kortajarena.*

—Nun eta noiz jaio ziñan?

—*Jaio Zarautzen, martiaren aurrenengunean, 1943'an.*

—Beraz, 27 urte dituzu?

—*Bai, 27.*

—Zenbat anai-arreba zare?

—*Bost izan gera. Lau arreba eta neu mutill bakarra, zaarrena, leenena, neu. Aita ez det bizi. Ama bai.*

—Bilbo'ra, Atletikura, noiz etorri ziñan?


—*Futbol'eko izkeraz esanda 62-63-eko joko-aldian etorri nintzan.*

—Leenago nun jokatzen zenduan?

—*Zarautzen bertan asi, itxas-ertzeko ondarrean. Eskola lagunekin. Gero Zarauzko juvenil taldean egin nitun 3 urte; 18 urte bete ta gero, onea etorri nintzan, Baskonia'kin jokatzera, eta urte-bete egin nun. Andikan etorri nintzan Bilbora, atletikura.*

—Salto andi bat ezta?

—*Bai, juvenilletatik, bigarren dibiziñora, ta andik lenengora. Lenengo urtian, 3 edo 4 partidu jokatu nituan bakarrik, orduan Karmelo zegon ekipoaren ateko. Eta zelako nintzan, emenguak ikusteko, jokatu nitun, azken aldiko 3 edo 4 partidu.*



—Ze urtetan izan ziñan lenengoz atezain (porteru) internazionala?

—*Seguru seguru ez dakit, baiña uste dot 64-65 joko aldian zala. Sevilla'n jokatu gendun eta Irlanda-ren aurka.*

—Arrezkero zenbat bidar jokatu dozu, internazional lez?

—*Arrezkero 27 aldiz.*

—Atletikua, asko maite dozuna badakigu. Lagunak alkar maite dozuena be bai. Ekipu orren ames eta itxaropenak?

—*Ametsak andiak. Ametsak beti andiak izaten dira, gaiñera aurten egin geink amets. Aurrenengoen tartean gaudela ikusten degu, eta beste taldeai lan asko ematen diegu. Baleiteke gure futbola ez izatea munduan onena, baiña emengoen tartean iruditzen zait lenengoen arteko izan gintezkela.*

—Azken igandetan izandako beeraldia gainduko ete dozue?

—*Bai, zoritxarrez izan ditugu iru partidu ondo irten etzaiguzanak, baiña uste dot Kopea asi ta jaikiko gerala.*

—Kirolari zareanez ostiko-pelotaz gaiñera, jokatzen al dozu beste zerbaitetan, edo astirik izaten dozu?

—*Asti gutxi, egia esateko, baiña oso guztora irtetzen naiz mendira, neure semetxo ta andreakin. Bakarrik ez. Nire atseden aldiak alkarrekin ematen.*

—Esku-pelotan jokatzen dozu?

—*Ez, eta pena andia daukat; pelotazale amorrotua naiz ta. Baiña kaltegarri zait eskuetarako, eta ikusteaz konformau bear. Pozik joaten naiz ikustera.*

—Esku-pelota, ala cesta-punta atsegiñago?

—*Nik esku-pelota. Gure errian ortara oituak gera. Onea etorri arte, eneban iñoiz ikusi cesta-puntarik. An ortara gutxik jokatzen dute. Geienak eskuz, baton-batzuk palara be bai. Esku-pelota degu gogorrena ta mintsuena.*

—Nortzuk dozuz pelotari begikoenak?

—*Ez da errez esatea. Onenak ez dakit esaten. Orain biotzez ditudanak Tapiatarrak. Oneik leen futbolean geure aurka jokatzen eben. Eurak «Anaitasuna» Azkoiti'ko ekipoan eta guk Zarautzen. Gero asi ziran pelotan ta orain be lagun gera.*

»*Gero neure arreba bat Atano IV'aren seme batekin ezkonduta dago. Oneik dira biotzez segitzen ditudanak.*

—Zinema-zalea?

—*Bai, leen asko joaten nintzan. Orain ez diot zer andirik aurkitzen. Erbestean edo egonik, talde osoa joaten gera batzutan, baiña zail da pelikula on bat ikustea.*

—Zuretzat, ziñeko-izarrik onena?

—*Beti-beti asko gustatu zitzaidana Gari Kooper. Ikusgarria da. Nire ustez bere pelikulak oso onak dira. Biotz oneko gizona, ta ona zabaltzen duana.*

—Kirolari zareanez, bizitzan artutako poztasunik andien bat?

—*Bai, ez det aiztuko, nire poztasunik aundiena lengo urtean izan zen kopa irabasi genuanean. Partidua bukatu zanean, bertoko giroa, ta andik gero bi edo iru egun eta emen Bilbon erriak egin zigun ongi-etorria, ez dira aiztutzeko.*

—Kirolaritzan baiño makalagoa etzara gizontasunean. Gizabidez begiturik, zelan artzen dozu kirola?

—*Iruditzen zait oso gauza ona dala, kirolari lotuta ibiltzea ,neuretik itz egin neike. Iruditzen zait bere bidez asko ikasi detala, bai gizon lez eta bai lagun-artez. Munduan ibiltzen be pizkat ikasi det. Kirolaritza, gizonan betegarri bat dela deritzait. Asko laguntzen du, gizonago izaten. Asko sufri bear izaten da, eta norbere griñai eutsi.*

—Asko asarratzen al zara, jokatzean?

—*Bai, askotan, eta uste det berezkoa dela. Orain asarre-aldi laburrak izaten dira. Une batekoak, baiña gero bat konturatu ta errez juaten da. Lagunen artean zerbait esaten dogu. Suerte txarra edo gaizki egin dezu, baiña lagunartean alkartasun aundia izaten degu. Laister esaten diogu edo digute «Urrengoan obeto egingo dozu ta asarrea agur».*

—Kirolaritza, orain utzi ta zeu zelangoa zaran agertzeko, esan eiguzuz zeure zaletasunik andienak.

—*Oso gustora egoten naiz musika entzuten eta leitu be bai oso gustora. Baiña aztirik ez det izaten. Gero mendira urten ta, Artxanda ta Unbe'ko piñudietara.*

—Musikarik begikoena?

—*Belarrirako gozoa ba'da entzun edozer. Sinfoniak eta Klasikuak maiteen. Lenen Bach eta Betoben. Leitu biografiak batez be.*

—Euskeraz irakurtzen dozue?

—*Asko ez, baiña beti zerbait. Baditut or liburu batzuk. Ebanjelio ta olan. Orain-txe asi bear det geiago irakurten. Leen erreztasun geiago neban, geiago irakurten neban eta.*

—Etxean euskeraz ala erderaz?

—*Euskeraz beti. Nire emaztea ta biok Zarautz-tarrak gera; Ta bai, an geure fameliekin eta emen alkarrekin, dana euskeraz egiten degu. Nire semetxoei be bai, jakiña.*

—Zenbat ume dituzue?

—*Bi mutil. Bat 23 illabetekoa, Martzel neure aitaren izenez, eta bigarrena 12 illabetekoa, Joxe Angel neu bezela.*

—Esan dozunez soiñu onak maite dituzu, eta gaurko era barrikoak zer?

—*Oien artean be danetik dago. Musika bera, batzuena gustatzen zait, orain etzait euren abesteko edo agertzeko era gustatzen. Barregarriak dira asko. Soiñu edo abesti bat polita ba'da ez dot uste orrenbeste mogitu bearrik dagoanik iñori a agertzeko, eta orren nabarmen agertu bearrik be ez.*

Besterik ez gendun eta pozik urten giñan, gure gazte bikain au ikusiaz. Ba doguz euskaldunok gazte bikaiñak, batean eta bestean, kirolari lez; goi-maillako gizona ba'dogu be, bikaiñago nunbait bere izakera, eta asmoekaitik gure Iribar, ainbeste gazte ta zarren eredugarri.

MENDIKO

TXIRRINDULARIEN GIROA

Emen datoz txirrinduketa nagusiak. Orretara zaletuak garanok zein giro dakarren ezagutu bear gendukela-ta, ara emen datozan burruketarako nundik dabizan gure mutillak, edo obeto esateko erbestetik dabizenen aukerea:

Lenengo ta bein, Merckx aundia izentatu bear, bere «Faemino» taldean lagun onak darabillaz: Huysmans, Kint, Van Schill... Orri gogor egiteko prantzezak Aimar, Poulidor ta Guimard'en itxaroan dagoz. Lenengo orrek, oraintxe bertan lasterketa bat irabazi dautso, Bellone ta Riotte dauz lagunik onenak bere Solonor taldean. Beste biak, «Fagor-Mercier» taldekoak, makaltxoago agertu dira. Ba- da beste «Fagor» orretan itxura obean dabillena, Chappe, Paris -Vimoutiers'en izen aundiko asko atzetik erabilli ebazena. «Peugeot'eko» Pingeon ta onen lagun diran Bracke ta Letort ez diran orain arte kukurrutu... Italarrak, Motta ta Gimondi, «Salvarani» taldean, adizkidetu dirala-ta ia ezer oberik egiten daben itxaropenean dabiltz. Dancelli, «Molteni taldean, len Merckx'en laguna zan Van der Bossche lagun dabela; ta oneik ez ba'dira neurriko, Adorni, Bitossi eta Armani'ren zain... «Bic'eko» Janssen ezaguna olandarren itxaropena oraindiño be... Dinamarka'k daukoz aurten zaindu bearko diranak, Mortensen eta Ritter, «Bic'ekoa» a, German «Vox'ekoa» beste au... Alemanak, Altig buru dabela «Zimba» taldean batu dira alkarren berotasunean zerbait egiteko asmoan... Sueziak be «Ferreti» taldean doazan Petterson biak dauz itxaropen... Portugaleko Agostinho («Frimatic») eta Ottenbros, Monsere, Van Springel... naikoa ez ba'lira edo, ara or Merckx'en atzetik dabillazan Vlaemink anayak, Godefroot, Van Looy, ta Sercu.

IZAR

IKASTAROA

IRAKURTEN IKASI

(tz: gaTZa, janariari ipinten yakona)
(ts: oTSoa, basoetako pizti gaiztoa)
I-RA-KUR-TEN I-KA-SI DA-GI-GUN.
AR-TU E-GI-ZUZ LA-GUN BI ZU-RE-GAZ.
JE-ZA-RRI ZAI-TE-ZE LA-SAI.

Au i-ra-kur-ten a-si zai-tez,
e-ta zu-re la-gu-nak en-tzu-ten.
Ez zai-tez a-ri-ñe-gi i-bi-lli,
as-ti-ro as-ti-ro bai-ño.

(,) ta (.) ba-koi-tze-ko gel-di-al-di-ak on-do e-gi-zuz.

-Ne-gu-an zer e-gin zen-du-an?

-Ne-gu-an e-txe-an e-gon nin-tzan.
Men-di-an e-du-rra e-gi-ten e-ban.
e-ta ni ai-ta-gaz e-ta a-ma-gaz
su-kal-de-an be-ro be-ro
e-der-to e-go-ten nin-tzan.
Ne-gu-an as-te-gu-ne-tan ni
i-kas-to-la-ra jo-a-ten nin-tzan.
(NORA ZOAZ? idazti politetik artua)

Orain, ia zure lagunok ondo ulertu dautsuen, galdetu egiyezu.

Onezkero, lagunetatik bateri, orri au emoyozu ta irakurri dagiala barriz, asieratik onaiño.

Onek amaitzean, besteari emon, irugarren aldiz irakurteko.

Zeuk i-ra-ku-rria a-la la-gu-nak
e-gi-ña u-ler-tu do-zu o-be-to?

Irakurri au barriz eta (?) galdera orren soiñua egizu ondo.
Biar bere, ta aste osoan, lagunok alkartuta, egizue ber-berau.
Bitarteetan Abeletxe jatorraren lanak irakurten asi zaiteze, ta ez makaldu asieran neketsu ba'zabillaze; amar egun barru, a zelako aldea!

TA ORAIN IDAZTEN ASI

Kakoetatik kendu doguzanak zeuk idatzi egizuz eta osotu erantzunak:

1. *Zer zara zu?*

N. g.z..a naz
N. e..ku... n.z

2. *Nun zagoz zu?*

N. .tx..n n.g.
N. s.k..d..n n...

3. *Zein da zure aurrean dagona?*

Ori n.r. ai.. da
O.. n... l:gu.. da
O.. ez d. n.... .rr.b..

4. *Zer egin dozu?*

Eu.k...z ir.k..t.. asi n.z
E..ke... .d.zt.. a.. naz.

Gura izan ezkero, ebagi ta bialdu eiguzu zati au, okerrik ba'lego zuzenduta barriz bialduko dautsugu. Jarri zure izen, abizen eta zuzenbideak)

AIXOLA'K

NEGAR ETA BARRE

Kerbasio'k ez eban sinistuten, abereak itz-egiten ebenik, antxiñako aldi areitan. Balaan'go astoaren itzaldi trebeak be, yardun txukuna barik, arrantza gogaikarriak ziurrago izango zirala uste eban. Baña lengo egun bat ezkero, ziaro aldatu da gure gizona bere ustetan.

Esango dautzuet zergaitik.

Lengo goizean, etxetik urten zanean, asto patxadazkoa ikusi eban atadian, burdiaren bi pertikaen erdian lotuta. Burdia ta astoa esnedun batenak ziran.

Belarri luzeak tente, begi andiak erne ta muturrak irribarrez ebazan astoak. Gañera... arrigarriena, zerbait iñotsola iruditu yakon.

—Arriturik, bai diñotso Kerbasio'k astoari:

—Zerbait esan al daustazu?

—Yakiña ba, esan dautzudana! erantzun eutsan astoak- Igazi zan igandean, Markiña'n, asto-lasterketa irabazi nebala esan dautzut.

Une orretan, eldu zan esneduna, yaubea.

—Eztozu sinistuko, baña zure astoak, itz-egin daust! —esan eutson Kerbasio'k, ari.

—Bakit zer esango eutzun —azaldu eutson esne banatzalleak—. Markiña'ko asto-lasterketa irabazi ebala, ezta?

—Oooorixe esan daust!

—Ez egiozu yaramonik egin, guzurti utsa da-ta. Irugarren eldu zan ozt-ozta, arnasarik artu ezinda.

Arrezkero Kerbasio or dabil, yazorikoa batari ta besteari kontatzen. Baña berari be orain, iñok eztautso sinistuten, ta orrek amorru bizia emoten dautso. Berak ikusi ta entzunikoa sinistu ez?

ABELETXE

ANTXIÑAKOAK OTZ GAIZTUA

Zuaz itxas aldera,
otz gaizto, begi baltza!
Lorai itxi eyezu
jantzi dayen baratza!

Lotan dagoz zelayan
eder diran liliak;
txori barik dakustaz
zugatz ganeko orriak.

Urrezko goiz argia
ikusi gura dogu;
mendi eta latziñak
bediz udabarriztu!

Eguzkia bai-dabil,
baiño odeiak nagosi,
Otza, laga egistak
dakustan oztin ori!

Geure gogo minduak
udabarri zain dagoz.
Olako ordu baltzakaz,
otz ori, nora zatoz?

Zuaz itxas aldera,
otz gaizto, begi baltza!
Lorai itxi eyezu
jantzi dayen baratza!

ERLETXUE

(Milla Euskal-Olerki Eder)

AGUR

«Agur, luze aña labur».
Esakun ori egin ebana ez zan izan motela.
Izan be, AGUR, itzez laburra dozu, baña izatez, esan-guraz, luzea, luzerik ba'da.

Askok uste dabe, aldetzerakoan, yoaterakoan, gaztelarren «adios» adirazteko dala bakarrik, itz polit eta txukun ori. Ezta orlan. Agur esaterakoan, gero arte biar arte, urrengo arte, ikusi arte ta abar esaten dogu.

Baña agurra, aldetzerakoan ezezik, etortzerakoan be, arrera egiterakoan be, bardin-bardin erabiltzen da.

Esaterako, gaur berton, Bermeo.n, norbaitek aspaldian ikusi eztauna ikustean, alaitasunez esan oi dautso: «Agur zeuri!»

Erantzuna, «Agur zeuri be!» izaten da. «Bien venido» ta «Bien hallado» esatia lez.

Beraz, agurrarekin izaten da arrerea, ta bardin aldekerea.

Agur itz onekin adirazi daikeguz gaztelerazko oneik: Saludo, Ave, Salve, Adiós, Adorar, Hola ta abar. Azkenik bakoa baita gure agurra. Aundia, biotz ikuitgarria.

Nork eztau ezagutzen kanta au?: «Agur yaunak; yaunak agur, agur t'erdi?»

«Agur t'erdi» orren zabalerea, luzeerea, eztira errez neurtzekoak. Agurra luze ba'da, «t'erdi» orren esangurea ezta laburra. Amaorik bakoa da.

Gure artean, edozein yairen azkenean abestuten da, ta ez uste izan txarto erabilia danik, baña kanta ori asikerarako egiña da.

Orregaitik-edo, gu, gaur, asi egin gara aldizkari onegaz.

Beraz... guk, txapela eskuan dogularik, alan agur egiten dautzuegu: Agur yaunak; yaunak, Agur! Agur t'erdi!

ABELETXE

GARRAZI

Garrazi ilkorretan
ots dagi biziak,
dirua bear dala,
bizi izateko.
Gizonen eskubidea da,
bizi izateko bear dana
bearraren bidez
eskuratu al izatea.

Gizadiak gaurkoz,
era orretan zuzentzen ditu
bere bideak,
guztiak
bere seme-alaba
izanik.
Ezin leikio iñori kendu
berezkoa dan
eskubide ori.

Baña ze adur txarrek
banatu dau gizadia
alderdi izugarrietan?
Anaitasun ordez
burruka garratza
sortu bear ete dau
kidekoen artean?

Egarri zuzena da,
ondasunen egokitasunez
bizi nai izatea
Berezko eskabideri
gizontasunez erantzunda.

Egarri zuzena ez da,
naiz banan,
naiz alkarturik,
ondasunen egarria
asetu eziñik
ibiltea.

Guztienak direnak
norberekeriz norbereganatzeak,
erruz sortuko ditu
kurutzak lurrean.
Diruzalekeriak
gaiztakeriz zapalduko ete ditu
gizonen bizitzak
lotsagarrizko nabarmenkerian?

PAULIN

INICIACION AL ESTUDIO DEL EUSKERA

Irakasbide erreza eta erabilkorra, ezer ordaindu barik danori emoten doguna, «Koka-Kola» eta «Fanta'ren» babesean argitaratua.

AURTXOA I . . . . . **30 Pta.**
Idaztitxu onen elburua: gure umeak Euskeraz irakurten ikasi dagien. Margo ederrakaz egiña.

AURTXOA II . . . . . **40 Pta.**
Au, umeak irakurten jarraiteko eta «Aurtxoa I'ren» bidez jaretxi dabezan ikaspenak osatu dagiezan.

IRAKURGAI ERREZ POLITAK, I ETA II . . . . . **10 Pta.**
Euskera errezean eta iztegi laburrez idatziak, gure Izkuntza ikasten diarduenak, irakurgai polit eta egokien bidez, ikasi dabena, alkarrizketan erabilli dagien asmoaz, liburu onek argiratu doguz.

IKASTEKO . . . . . **75 Pta.**
Ikastolentzat egindako idaztia; «gauzen ikaskai» sorta ederra daukana.

ALKARTU DANOK . . . . . **15 Pta.**
Sakel-idaztia, Mezatako otoiakaz eta Eleiza-Abesti sail ederra daukana.
Bigarren argitaldiz, laster agertzeko dogu idaztitxu au, Meza Deuna'ren azkenengo aldakuntzakaz.

NORA ZOAZ? . . . . . **75 Pta.**
Aita Goikoetxea'tar Iñaki, J. L.'k idatzia. Bizkai Gramatika, errez eta atsegiñez ikastekoa, margo ederrakaz argitaratua («Euskerazaleak», Bizkai Erasketxea'ren babesean antolatu eban Sariketea irabasi ebana).

GIZA-SOIÑA . . . . . **100 Pta.**
Idazti onen gaia soiña edo gorputza da. Ba daukaz iduri egokiak, ederto margotuak.

Liburutegientzat salneurri onek danak 25 o/o beeratzen doguz Ikastolak, baldintza bereziak lortuko dabez gugandik.

Eskatu Euskeratzaleak Bazkunera, Colón de Larreategui, 14 (Bilbao-1)

IDAZTIAK

NAI AL DOZU OSOTU, EUSKAL-IDAZTITEGIRIK TXUKUNENA, EDERRENA?

Arpidetu zaitez LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA deritxonera. Guztitariko idazti bikañak eskiñiko dautzuguz, euskaltzalerik aipatuenak idatziriko lan irakurgarrienak, zoragarrienak. Dan-danak apainkiro egiñak dira, ta eurak etxeratuaz, zure idaztitegiak asko irabaziko dau, ta zure euskal-jakintza sendo aberastuko dozu, geure Erriaganako maitasuna piztuaz.

Orrez gane, atsegin-aldi onak izango dozuz, bai zeuretzat eta bai adiskidientzat, diru gitxiren ordañez.

GURE IZKUNT-ZALEENTZAKO, EUSKAL-ARLOAN EGIN DANIK IDAZTIRIK EDERRENA

AZKUE'REN IZTEGI ANDIA, BARRIZ ARGITALDU DA

Izkiz-izki jaso da idazti zar ori, ta neurriz, tankeraz, esku-artean erabilteko egokiagoa egin dogu.

Orrez ganera, dotorea ta iraunkorra dozu, urrezko pitxiekin jantzia.

Itz-aurreak, Euskaltzaindiko bi jatorrek egiñak daroaz. Ganera, Azkue'k Iztegi irukoitz orren ondoren, gizaldi erdi batez batu ebazan 5.000 itzekin aberastua.

Idazti onek baiño goralmen geiago jaso dauan idaztirik ezta izan. Goralmenetariko batzuk ementxe doaz:

«Erraldoi baten lana dozu» esan eban Eleizalde'tar Koldobika'k, 1908'gn. urtean. Lan aberatsa, bikaiña, ziurra. Hugo Schuhard'ek be alan baieztu eban, pozez beterik.

Gorostiaga'tar Jon Euskaltzañak auxe diño: «Azkue'ren iztegi irukoitz ori baño ederragorik ezta sortu oindiño. Bere barruan bai daroaz biotza ta arimea, indar aundiz. Danon laguntzaz, berau izango da arrobirik onena euskal-idazleentzat».

Mitxelena'tar Koldobika'k HISTORIA DE LA LITERATURA VASCA deritxon idaztian, 142'gn. orrialdean, orra zer diñoan: «Azkue, 87 urtetan jardun zan eten gabe. Bera izan zan, euskal-izkuntzaren iturri gardena. Bere Iztegi aundiak, era barri bat asi eban ,idazkeran eta mintzaera errikoian».

Lino Akesolo'rentzat (BRSVAP XXI'gn. URTEA), Cancionero, Morfologi ta Iztegia, bakotxa banan-banan arturik, aski dira Azkue'ren izena illezkor autatzeko. Azkenengo orrek, Iztegiak, zabaldu ebazala euskal-izkuntz bideak esan daikegu».

«Azkue'ren lanik gorengoena —diño Juan Ibargutxi'k, 1957'garreneko EUSKERA aldizkarian—, Euskalerriko zokondo guztiak arakatuaz biribildu eban Iztegi andia izan da ziurki, ortarako bear ziran gogoa, lana ta ekiña aintzat artzen ba'doguz»

Euskaltzaindiko idazkari dan Juan San Martin'ek, orra zer diñoan Azkuetzaz, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k irarririko «Escritores Euskéricos» deritxon idazti txukunean: «Ziurki, euskera erabili izan daben edonor, zorretan dago gizon orregaz».

Federico Baraibar'ek, 1907'gn. urtean Azkue'ri idatzi eutson esanaz: «Arretaz begiztu ta irakurri dot zure Iztegia. Arrituta, liliratuta lotu naz egin dozun lan kemetsuaz. Zeure izena betiko irarri dozula uste dot, jaso dozun edergallu orretan».

Aita Raimundo de Olabide ta Azkue ez ziran ondo alkar artzen. Ala-ta-be, arek idatzirikoa dozu au: «Iztegigintzari, lexikografiari azaldu dautson lan orrekin, beti-betiko irarri dau bere izena. Irakurri ta astertzen dodan bakotxean, andiagoa ereizten dot. Ezta txantxetako auzia».

«Sinistu be ez daiteke, gizon bakar batek egin egikeanik ain lan egokia, ain osoa —dirausku Aita Villasante'k—, «Historia de la Literatura Vasca» deritxon idazti berdinbakoan. Iztegi orretzaz idatzi ta egin diran goralmenak, bidezkoak eta ondo mereziak dira.

Euskal-idazle on guztiak, iturri ortatik edan izan dabe. Orregaitik-edo, «Euskera Onaren Iturri» dala eban Orixe'k.

Azkue'k ondo ekian —iarraitzen dau Aita Villasante'k—, izkuntza osasun andia zala gizartearentzat. Erriaren emaitza zala. Eztala beste izkuntzarik erriak darabillana izan ezik; bere-berea daulako ta belaunik-belaun ondorengoei eroan bearrean dalako. Euskerea, euskera dozu, dan lez, ez irudimenez asmaurikoa.

HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE VIZCAYA DE E. J. DE LABAYRU

Zortzi liburutan agertzen da. Euron neurriak oneik dira: 23,5 luze, 16,5 zabal eta 6 lodi. Zazpigarren liburuan; egilleak galdutzat eukozalako orduan azaldu ez ziranak be ba'dakaz. Historia de las Historias» On Andres Mañarikua'k idatziriko lan ederrenetarikoa be bai.

Dotorea ta irakunkorra, liburu-gairik onenagaz egiña.

Zazpi milla orrialde daroaz jakingarriz beteta, uler-errez-erreza.

Marrazki politenetarikoak, eta Bizkai ta Euskalerriko argazki zarrak.

Liburu oneintzat bereziki egiñiko papelik onena.

Iduri politak eta gazigarri diran idazpuruak.

Au beste saldu izan dan libururik ezta izan! Len egindakoan azkenetan dagoz, eta lortu nai ba'dozu, argi ibili zidekez, barriz egiterik eztogu izango-ta.

Erosiaz, ez zara egundo damutuko!

HISTORIA DE NAVARRA

Barriz irarria izan da, Moret eta Aleson'ek idatziriko ANNALES DEL REYNO DE NAVARRA, sei moltso edo aletan.

Idazti orretatik ez zan bat bera idoroten. Agortua bai zan. 32.000 laurlekoraño ordaindu izan ziran euregaitik.

Orain, barriz urten dan au, gaur irarkoleak darabiltzan aurrerakuntzarik bizienaz egiña da. Bi kolore daroaz; bereziki landutako papela gañera.

Azkenean, Moret eta Aleson'ek orduan argitaldu ez ebezan beste batzuk be ba'daroaz, apaingarriz ornituak; geiago ondiño: José Ramón Alava'k, Naparroa'ko idaztitegi-zañak, idatziriko eretxi sakona.

EUSKALERRIAK ERESI ARLOAN IZAN DAUAN ABERASTASUNA AGERTZEKO EGIN DANIK LANIK EDERRENA

AZKUE'REN EL «CANCIONERO POPULAR VASCO» DOZU

Milla kanta errikoi daroaz! Maitale, barregarri, ibillaldi, eztegu ta abarrekoenak. Umeentzakoak, eleizetakoak, ardozaleenak... euren eresiaz.

Euskeraz idatziak; gaztelerara itxuliak.

Bi liburutan batuta dagozan euskal kanta oneik, 1912'garren urtean lenengo saria irabazi eben, Euskal-Diputazioek eralduriko sariketan.

AMESETAN BE EZ EGIKEAN EGIN, ALAKO LIBURU SALLA URTENGO ZANIK! LAZTER AZALDUKO DA BER-IDATZITA, DOTORE-DOTORE JANTZITA

REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS DERITXONA

25 liburu izango dira, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k, argitaratu dauzan HISTORIA DE VIZCAYA Y DE GUIPUZCOA'ren antzekoak. Ederragorik ezindakoak.

Errebista ori, On Julio Urquijo'k irazi eban, eta 1906'garren urtetik 1936' garrenerarte iraun.

Emengo ta erbesteko jakintsuekandik, aipamen goralgarrienak irabazitakoa dozu.

DICCIONARIO HISTORICO GEOGRAFICO DEL PAIS VASCO

1802'garren urtean REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA.k argitaldu ebanaren antz-antzekoa dozu; jakingarriz ornitua.

Liburu oneitan, Euskalerriko uri, baserri, errialde ta enparauak, 2.000 inguru aurkitu zeinkez, euren edesti, erri-gizon aipagarri guztienak, eleiz-gizon sonatuenak eta abar. XVIII'garren gizaldikoak eta aurretikoenak.

Beste guztiak lez, oneik be edertasuna darioela egiñak dira, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA argitaldariak oi daun lez.

ZUK BAI EKIZUN...

...Markiña'n eta Euskalerriko beste toki askotan, basurde-eiza eurrez egiten zala, juan zan gizaldiaren asikeran?

...Aintxiñako aldietan Tolosa ta Arrasate ospetsuak izan zirala izkillu zorrotzak eta arrizka landu ta galtzairuak egiten?

...Bizkaiko aberastasunik aundiña ardautikoa zala XIV'garren gizaldian, eta ardau gozoak, Prantziko Frontignan'ekoak bezin ospetsu zirala?

...Felipe bigarrenaren alditik onakoa dala, Oria ta Urumea errekak alkartu ta itxas-ontzientzat ibilgarri egiteko asmoa, Tolosa'tik Donostiraño?

...Aldi baten iru Bizkai egozala: Jauntza, Aibar Arana Naparruan eta auzune bat Pasain?

...1800 garren urtean, Bilboko ibaia, gaur Nervion deritxona, Neva izenez ezagutzen zala ta baita be Ibaizabal entzutetsuagoaz?

...Orain gizaldi batzuk dirala, ospetsu zirala Durango'ko sagarrak, Zalla'ko tomateak eta Bilboko marrubiak, Europa'ko gustagarrienak?

Alako jakingarri ta beste antzeko asko izango dozu, «Diccionario Histórico Geográfico del País Vasco», 1802 garren urtean Academia de la Historia'k argitaldua eskuratzen ba'dozu.

Laster ber-irarriko dau, «La Gran Enciclopedia Vasca» deritxon irarkoleak.

AZKUE JAUNA (1864-1951)

Azkue lekeitiarra zan, *Parnasorako bidea* eritxon bertso-liburua idazti eban Eusebio Maria'ren semea. Nautika erakusten eban bere aitak Lekeitio'n, eta ementxe ikasi eban berak be olako zerbait; gero Bilbao'n (1881) batxiller osoturik. Ondoren apaiz-karrera arturik, Gazteiz'en egin ebazan Teologi-ikasketak eta Salamanka'n Eleiz-legedikoak (1888). Mezakotu ondoren, bizitza guztian Bilbao'n bizi izan zan, beti euskereari lotua. Bizitza aberatsa, lerro batzuen barruan sartzeko lar zabal eta ederra.

Euskera ta euskal-gaiak ezezik, musika be ikasi eban, Bilbao'n, Paris'en, Bruselas'en eta Kolonia'n. Opera batzuk idatzi ebazan, eta ez edozelakoak. «Ortzuri» ta «Urlo», opera bi doguz, idurimen zabal eta andiz egiñak. Bere egunetan txalo ederrak merezi izan ebezan. Azkue edozein gaietan zan andi ta bikain. Eta geroago, zelako mesedea egin eutson Euskalerriari, bere doiñu-utsezko musika ugariak batu ta alkartuaz. Gure erri-jakintza edo folklore guztia, edo beintzat geiena, berak batu ta liburuetan itxi euskun.


Gero, 1897'tik 1899, «Euskalzale» argitaldu eban. Euskereari indar kementsua ezarri eutson albistari onek. Donosti'n Jose Manterola'k bere *Euskalerria* 'gaz eta Azkue'k Bilbao'n bere *Euskalzale* 'gaz euskerari ta euskal gauzai eutsi ta bultzakada ederra emon eutsen, orduantxe bizi-bizi etorren eta ebillen Sabino Arana albora itxi barik. Au jakitea komeni yaku guztioi, bai zarrai bai gazteai. Gerotxoago, 1902'tik 1903'ra, urte bitan *Ibaizabal* atera eban *Kirikiño* lagun ebala.

Garai aretan ba-zan euskal giroan olako gurari bizi bat: Euskaltzaindia sortu gura zan. Zelan? Nortzuk? Itaunok ez dira gaurkoak. Orduan be baziran kezka ta istilluak; gaur lakoxeak nunbait; istori, kondaira edo edestia barriztu egiten da-ta. Azkenez, Oñati'ko Unibersidadean Batzar aundi bat egin zan, España'ko erregea bera be bertaturik. Euskaltzaindia antxe sortu zala esan geinke, naiz ta urrengo urtean lenengo pausuak emoten asi. Azkue izan zan, eta bizitza guztian izan be, Euskaltzaindi orren buru.

Bai, bere lana, ertz guztietatik begiratuta, ikaragarria izan zan. Altube'k onan: «Olako lanik geien eta bikaiñenak egin lukeanentzako «premio Nobel» bezelako saririk balitz, mundu guzian, Azkue jauna geunkean irabaztaille».

Bere liburuak

Azkue'k asko idatzi eban. Baiña lau lan ditu batez be, bere iduria



goi-goi jarten dabenak: *Diccionario vasco-español-francés* ale bitan (Bilbao, 1905, 1906). *Cancionero popular vasco* (Barcelona), *Morfología vasca* (Bilbao, 1923) eta *Euskalerriaren Yakintza*, lau ale (Madrdi, 1935 ta abar). Lenengo irurak barriro be Retana jaunak argitara emon dauz, oso apain. Laurok izan dira-ta merezita, guztiz txalotuak.

Ba-ditu beste batzuk be, ta ez garrantzi gitxikoak. Oneik, esaterako: *Euskal Izkindea*, *Txirristadak*, *Jesus'en Biotzaren illa*, *Ardi galdua*, *Gipuzkera osotua*, *Vizkaitik Bizkaira*, *Ortzuri*, *Urlo*, *Lamiak Euskalerrian*, eta abar. Gai danak erabilli ebazan: irakurgaiak, nobelak, ipuiñak, saioak, operak, izkuntz-gaiak...

Azkue'k izan ebazan bere okerrak, gaztetan batez be. Zetan? Gaur be aren antzera jokatzen asi garean ezkero, oker ori gogora ekartea ezta gauza txaldana izango. Gaur be, batzuok eta besteok, erritik aldendu samar gabiltz; onek eta arek, erru ta akats bardiñak arpegira botarik. Baiña, karkabara jaustekotan, naiz ezkerrera naiz eskumara jausi, bardin da: naiz garbizaleegi izanik, naiz mordoillo zuloan ondaturik, kalte bardiña egin geinkeo erriari; obeto esan, bere izkuntzari, gure euskerari.

Erriareni zkera, ez bakarrik aberastu, aldatu be egin daikegula uste eban Azkue'k; izkera oiturak, benetan diran baiño askozaz «aldatze-errezagoak dirala» iruditu yakon, diño Altube jaunak. Uste oker ori, bere gramatika «Euskal Izkindea» idazterakoan egin eban lenengoz. Onan Altube'k: «Egia esan, liburu orrek, etziruan agertzen aldakuntzakeri banaka batzuk izan ezik; eta eurok ere, etziran benetako berrikeriak, egiz edo ustez, euskera zaarrean aurkitzen ziran esate-moduak baizik».

Gero atzerritarren linguistika ikasi eban, eta orduan konturatu zan, batez, be, erriari jarraitu bear yakola berak esaten ebanez «txukuneriak» albora itxita. Erriak, euskera baiño besterik ez dakian egunero darabillen euskera ikasi ta erabilli eban. Eta erri orrengandik, gerora, zenbat itz eder, esakun, ipuin, edesti, bertso, doiñu jaso eban. Orreikaz bete ta apaindu ebazan gorago aitatu doguzan lau liburuak. Ba-dogu guk nun ikasi, zer irakurri.

Bere Izkirimiriak

Azkue guztiz zan izkirimiri zalea. Ta ba-ekian bere erria be, olakoak irakurteko, oso makurra dana. Gure erriak, izan be, beti eder izan dau gatz eta piperra. Orixe ez ete da euskal pilosopi? Errien nortasuna, gogo zarra, olan agertzen yaku.

Ona bere izkirimiri batzuk.

Bilintx eta baserritarra

Bilintx bein baserritar bategaz aurkitu zan, eta onek esan eutson:

—Aizak, Indalezio: ire buruak illargia zirudik.

—*Eta iriak, berriz, Kanpo Santua.*

—Zergaitik?

—*Illez betea dagolako.*

Ordi bat

Gizon bat ordia zan. Ardaoa lotia da, ta lo eragin eutsan illuntze baten. Itxartu zanean, itsumustuan ebillen, bidea aurkitu eziñik.

Zugatz edo arbola gaztea egoan burdin-sarez inguraturik. Eldu zan ordia araiñoxe; ta iru edo lau bira burdiñarik burdiña egin ebazanean, «katigu artu nabe» esanaz, barriro loak artu eban.

Mai baten

—Gilbor ori ederto ipiñi ei dok gaur.

—*Bai, Erri, ondotxu. Txartoago bizi danik badago.*

—Zer jan dok, bada?

—*Zukurik eta lapikoko edo anabakarik eta porrusaldarik eta orretakorik onako egunetan eztot nai izaten; orrek etxean.*

—Ez abil txarto.

—*Oillasko-oillandak, lebatza, aingira txikiak, igarri ezindako gauza biribil-biribil batzuk, eskailloak iñoizko onenak, txarrikia, arrautzatan otzarakadea...*

—Zelan sartu al izan dok urdaillean orrenbeste janari?

—*Ogien ogiaz eta ardaoen ardaoaz.*

LEA

OSKOLA GOGORRA IZAN NUNBAIT

Arrautzatik urten guran ainbat illabete ibilli ondoren emen gatoz, luma bigunegaz baiña asmoz sendo. Gaurko au zerbait atzeratuta darabilgula asmatzen ba'dozue be, asieraren ateak zabaldu doguz ta aurrera jokatzeko mailletan gora joango gara.

AGUR

Bilbao

ARPIDETZEKO TXARTELA

Urtebeteko laguntza, 100 lauerleko

IZENA .....

ABIZENAK .....

Zuzenbidea..... ....

Uria..... (.....)

AGUR aldizkari onetara arpidetu egin gura naiz,

.....

(izenpetu arren emen)

ebagi ta bialdu. AGUR, apartado 2. Bilbao

GARBITU TA BAKANDU

Entzute aundiko G. B. Shaw'k, bere irabazietatik zati eder bat, bizi zan artean berak bultzatuta osotu zan, engalandera obetutzeko batzordeari utzi eutsan. Zertarako? Ortografia zuzentzeko batez-be. Or dabiltz arrezkero, Shaw'ren kezkarik gogorren ori nundik bide onera ekartearen billa.


Egalandera ikasten alegindu garanok ondo dakigu, erreza litzaken izkuntza ori, zerk zailtzen daben: Izki bakoitzaren ainbeste aozkerak. Ta, gaur ludian izkuntzarik erabilliena ba'da be, askotzaz geyago izango litzake ortografi matasa ori zerbait orraztuko ba'leuskigue.

Aor baiña, Shaw'k bultzatutako batzarra aurrera doa, eta enda orretakoak oi daben eran, arrapataka barik emen datoz astinketa baten, alperriko izkiak kendu eta, gure izkuntzan orain larogei urte egin zan lez, aozkera bakoitzari bere izki bakarra aukeratzen. Len Atz'etik Metro'ra etorriak dira; orain 20 shilling dun Pound'etik 100 Pence'kora; laster idazkera labur, garbi ta errezera. Nekez baiña ziur, danon oberako.

Onek eragin ete-dautsee Frantzia'ko agintarieri euren idazkera errezago baten billa joateko? Urte onen asieratik Chaban-Delmas jaunak Guichard bere eziketako arduradunagaz alkar-izketa ugari izan dauz onetzaz, ta ondoren, Barritzaille Batzorde barria izentatua izan da. Epaillaren 17'an batu zan lenengoz, ogetamar lagun danera, geyenak goi-irakasleak ta euron artean Pierre Emmanuel olerkaria. Asmoak?: nastagarri diran «eùa, ou, ph, h, buztandun c, izki bikoitzak eta orrein alperriko lagun asko sapuztu.

UBITZA

AGUR



ILLEROKOA
2 ZENBAKIA

1970 - BAGILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

UME - IKUSTEA

Nire jaiotzatik zortzigarren egunean, ume-ikustea izan dogu etxean. Au zer dan ezdakianen bat, zuen artean izan daitekeala ta, beronen barri emotera noa. Neu, «Agur» sein barri au.

Amaren andra-lagun guztiak batu dira, gure etxeko sutean. Arratsalde osoa emon dabe alkarregaz. Etxera eldu, gelan sartu ta seaskan nengoala begirada bat niri. Gero mozu bat, kristiñaua naz ta; amari beste laztan andi bi matrailletan. Gero luzaroan aipatu dabez erdi-miñak eta igarotako ordu baltzak. Gero txokolatadea, opil eta edari gozoak oparo.

Azkenik, briskalaririk onenak sei-lagunean gogor; gaiñontzekoak, panderuotsean, sua dantzari. Olan illun-abarrerarte.

Eta, umea nun? Aaztu egin ete iake? Ez orixe. Aterrune bako itzaldi aretan, ni nerabillen, gora ta bera. Eurenak eta bi esan dabez.

Askotan entzun izango zeuntzen adiñeko andrari: «gaurko umeok ez dozana lengoak lakoak». Antxe bertan esan dabe, Mundaka-n, agin eta guzti jaio dala seintxu bat. Ez da arritzeko. Gaurko aurrerapenak olako asko ekar bear dabe. Belarrira esango dautsuet: ni neu be enaz makala jaio ba. Ona zer egin dodan gaur. Erbiaren antzera, gaiñekaldeko begia guztiz itxita, azpikaldekoa erdizabal, eta belarriak andi ta ernai, androk esan daben guztia entzun eta gorde. Ene, zer ez dot entzun. Lagunak zareen ezkero, guztiaren barri neuk emongo, baiña ixilik e...

Lenengo, amama Azpaldi etor da. Otsaratxo bat besoan, neutzat gauzatxuz betea. Ikus baiño ez, bere aita zanaren antza emon daust. Begira zertan: begietan. Jazoerai, ingurukoei, gazi-gazei, aititek lez begiratzen ei dautsoet. Azaba bizi balitz... Nik barre.

Gerotxuago, Garbiñe sartu da, nire amaren lagun maite-miña. Amari poza emotearren edo, Jator nire aitatxuren antza dodala esan dau; surretik, jakiña. Nire aitak euki be, usaimen apartekoa dau. Usain eta sundeai antza emoten ez da iñun alako mutillik. Neuk be sur luzea dot, txakurkumeen antzera, atzik datorranean, surra dardar jarten iat. Orretan, aitaren antzeko izan gura neuke: sur onekoa euskaldun jatorren antzera. Larrosa usaintsua dalakoan, ez begi sartu iñok atz-dunik gure gelan; bestela, garrazika asiko.

Bestaldeko izeko Ekintza be etor da. Onexek jaurti dautse androi lodiena. Zer? Bizarduna nintzala ta zur ibil eitezala iñoenaz. Au entzun baiño ez, azpikaldeko begia be itxita ni.

Gaur ume asko dira zazpiki jaioak; baiña, nire antzera, egunak eta asteak jaio eziñik egonak be badira. Ez beite iñor arritu ni bizardun agertzeaz. Illak bota dodaz urten-bidea billatzen, orregaitik bizardun. Lotsarik ez dot. Nire aitita be bizarduna ei-zan. Bizarra mozten ezeban ordurik galdu; azkatasuna merezi eban, baiña au ikus barik il.

Bizar kontu onek asko poztu nau. Au be badiñautsuet: artazia eskuetan iñor urreratuko ba'litzakit, urtetan asiak dodazala agiñak.


Poz eta Lirain etor dira urren. Oneik, gizon-gizona jaio nazala diñoe. Ona emen ni: Begietan aititena, aitana surrean: bizardun eta agindun gaiñera. Itz baten: gizona.

Laban eta Bildur be izan dira gurean baiña iraduz eta polita nintzala esan eta alde egin dabe. Oba, ez dodaz begiko ta.

Pozgarriena: SEI auzoetako alabak agurtu nabela. Milla zorion artu dau ama gureak; jaiokeraz izandako akatzok gorabera, aurrera noa pozik.

Ume ikustea izan dogu. Amak artu dau amaika eskupeko: txanotxuak, oiñetakoak, oialak eta abar. Ardi-narru bat be ekar dautsoe azpirako, eta usaindun autsak erre ez nadin.

Guztiokaitik, euskaldun guztioi: ESKARRIK ASKO.



BILBOKO ITXAROPENAK ETA KEZKAK

Bilbo langillea! Bilbo langillea! Gure uriburuaren lan zaletasuna nun nai ta noiz nai goraldua izaten da; aldizkari, izparringi, irrati ta itzlari guztiak gure erritarren lan egin bearra «olerki» itxuraz azaltzen dabe... baña ibai ertzean, lantegietako laba aundi inguruan dagozeneen izerdi botatzea ez da olerkia ta bear dan beste dirurik eza askoz gitxiago.

* * *

Bateren batek Bilbori «zillerrezko katillotxoa» esan ei eutson. Gaur ikusiko baleuke «katillotxoa» bai, baña txokolate beroz betea begitanduko jakon emengo margoa ta lurrunak aintzat artu ezkero.

* * *

Gure kaia aundiago egingo ei dabe.
Durango inguru guztia lantegiz josiko ei da.
Gernikako ibai ertzak turismoari eskeñi bear ei dautseguz.
Jainkoak gorde dagiala Euskal Erria!

* * *

Laizter Bilboko jayak datoz. Euskal kutsuzkorik bai? - Bai zera!

* * *

Bilbon, egun ta erdian oñez ibili bear izan dogu; «zerutxoak» edo microbus urdiñen gidariak ez ziran lanera joan, euren eskariari indarra emoteko. Ikusten danez «zerutxo» orren ugazaba dan «San Pedro ordezkoak» gure erritarren gorputzak lirain ikusi nai ditu, koiperik barik.

* * *

Aspaldiko urteetan Bilbon euskal mezak eskatzen, naiko zarata egin dogu. Orain lortu doguz ordu geienetan baña bi edo iru ezik erdi utzik ikusten dira Eleizak. Egizkoa ete da gure euskera zaletasuna?

* * *

Gure Unibersidade barrian bere, beste orrenbeste pasatzen da. Ikastaroa asi zanean euskerazko klaseak beterik egozan. Gero, egunak joan, egunak etorri, ikasleak gitxitu dira. Ba gara ala ez gara?

* * *

Len Bilboko biztanleak berezko izakera izaten eben, urdin-nabar edo urdiñez jantzirik beti. Gaur Alkarria edo gizaburuko mutil baten artean ez dago soiñekoetan alde aundirik. Gure nortasuna galtzea orretan, onerako ba da...

* * *

Begoñako Eleiz naguzian be orain euskerazko mezea daukagu. Lelengoa gotzaiak emon eban eta pozez onartua izan da giro barri onen asiera.

PIPER - ZIRI

IDAZ LAGUNERI

Zuen arrera onak, asko poztu gaitu. Zuegandik artu dogun karta mordoa gure aurrera bideari jarraitzeko kemena sendotuaz aribidetzat datorkigu.

Baña orain karta orren ordez zuen lanak bialtzen asi ta lan orreri buruz oar edo eskari batzuk egitera beartu gaituzue.

Ikusten danez, aspaldian, zuen bularrak ura irakiten daukan lapikoaren antzekoak izan dira. Une berezi bat ikusi dozuenean, gure aldizkariaren bitartez lurrun guztiak atera nai izan dozuez.

Gu ez gara baña burrukan etorri, gure iritzi apalean egiaren billa ta egiaren alde baño. Euskeraren giroa obetu ta bera berpizteko biderik egokienak billatzen alegingduko gara. Ez dogu iñor mindu nai baña bai gure elburua zein dan adierazi.

Borondate on oneri, gogorkeriz inork erantzuten badautso ez gara ixilduko, geuk bere badakigu agin zorrotzak erakusten.

Al dala baña pakea nai dogu, anai arteko pakea, ea gure asabeagandik ikasi bear izan gendun demokratzia jokoa aurrera eroateko gai garan edo ez ikusiz.

Ta demokratzia ez da izaten geientsuak nai dabena egitea bakarrik, egin bai baña gitxiago diraneen iritzia entzun ta onartu ondoren egitea baño. Orregaitik betoz paketsu zuen lanak.

Beste oar bat: Gipuzkoako anai diran idazle batzuk bere eskeñi dauskue euren laguntasuna. Bizkaieraz geiena egitea gure asmoa izan bazan bere, orain, noizik bein beste euskalkietako lanak argitaratzea erabaki dogu. Ori izango da, gure uztez, batasunerako biderik egokiena. Lelengo al doguzanik irakurlerik geienak lortu ta alfabetatu; urrengo mallan beste euskalkietako euskera ulertu erazi; urrengoa barriz, euskalki osotuen ezbardintasunak moztu: orrela joko dogu euskera batasunezko izkuntza bizi batera.

Eskerrik asko danori.

AGUR

LUMA USAINTSUA

Goiz baten bidean aurkituaz,
—ezpangorri ta begi alaitan—
zenkarren zisku gaztain-margozko
edegiz, luma bat emon zeustan.

Biotz latza izan gizon baldarrak;
nik ez neutzun eskerrik azaldu:
barne-ozpiña txasta irudiko,
nenkarren bidez jo neban mutu.

Bidarloa olan, ixil, mutu.
Gero, luma eskuan arturik:
—«Zerez egiña zaitut, idazkortz?
Dozun usaiñak ba-dau gozorik!»

—«Len usainge nintzan, baiña arek
iku nindunetik naz bestetu;
zurgiñak nindun erara jantzi,
baiña, a barik, nintzake zarpatsu».

Geroz, maite, zeure arnasa dot
nigan, gogo ta soin, ixuria;
geroztik, gau t'egun, dot asmatzen
zure izanaren lurrun eztia.

IGOTZ

EUSKEREA

ONGI ETORRI!!

Ongi Etorririk gartsuena «Agur» aldizkariari!

Zerutar intza landare artera bezela etorri zan «Agur» nere eskuetara.

Egal batetik bestera irakurri nualarik, len ainbat aldiz esandakoa berritu nuan:

«Eztago gipuzkoerarik eta bizkaierarik, euskera ta euskera izan nai lutekeanak baizik».

Erdiko bidetik jotzen dualarik, «Agur»'ek bereala bereganatuko du erria.

Begoz urruti euskaldunok sakabanatzeko izan diran letra gogaikarri oiek.

Sasi ta larrak kendu, birrindu, desegin.

Euskal lorategia berriro aurpegi dizdiratsuz ikusi nai dugu. Ortara dator «Agur».

Laister konturatuko dira asmo onezko euskal irakurleak. Or agertzen dana da guk ikasi genduan euskera, ta ez gaur ainbat irakurgaitan arkitzen duguna.

Norbere euskalkia ondo ikastea da batasunerako eman ditekean pausorik bikaiñena. Gipuzkoar batek bizkaiera errez ulertzea, bizkaitar batek gipuzkoera bezelaxe.

Bein ortara iritxi ezkero, oso gutxi paltako zaigu egizko batasunerako.

Euskeraz, pentsatu, euskeraz idatzi, euskal joskera jatorra erabili. Ortaraka eztago zailtasunik; eztago aldaparik, nekerik eta illuntasunik.

Zer gertatzen gaur, gaur bezela?

Lan askotan eztago ez gipuzkoar, ez bizkaitar eta ez lapurditar kutsurik. Naste-borraste ikaragarri bat; Linboan baiño illuntasun aundiagoa.

Asma ditekean biderik ederrena euskaldunak euskerarekin nazka-erazi ta erderaren morroi egiteko; erderarengana zaletzeko.

Betor ordu onean «Agur» gure gogoak asetzera, legezko jomuga erakustera!

Asmo txar gabe euskal artaldetik sakabanatu diran ardi asko bilduko ditu berriro.

Ziurtasun osoa dut ontan. Bazegoan zerbaiten premia!

BASARRI

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Salneurria, 5 pt. alea

Dep. Legal: BI. 879-1966

NI EZ NAZ TXARRIA

Euskal-arazoetan sartu barri nintzala, alako pozarrigarritasun gozozkoa somatu neutsun biotz barrenean, Euskaldunak gitxi (ta naiko) dirala-ta. Geroago ta ziurrago ekiten neutson lanari ta extean ta etxeko lez ibilli ere bai. Nik nire laguntasuna emon ta ordaiñez gogo-babesa jaso nire lagunengandik. Au zoriona¡, niñoan nire barrurako. Bake ederrean bizi alegintxu baten ordez.

Egunak joan egunak etorri, an ta emen, tximurrak asi ziran agertzen euskeraren edo euskaldunen lurrean. Zer ete? Egon, egon, mutil, egin neutson neure buruari. Denporagarrenean ikusiko zer dan au. Sekulako loratzè ta aberastutze bikaiña izan leiteke.

Ta, aor, txinurrak anditzen ta ler egiten. Esaterako, nik beti esan, entzun ta irakurri oi neban: ni ez naz orretarako gauza, ta antzekotsuak. Ta alako batean, goizetik gabera, orra nun sartzen yatan belarrian esakera mingarria: ni ez naz orretarako kapaz. Lenengotan, nor edo nor ez zala orretarako arduradun nagusia, kapataz edo. Orretantxe nengoan ezbaitsu. Ta andik laster, euskera batu bear dalata, ainbeste istillu gorri. Orixe, neu be iritzi ta gurari orretakoa nozu: batu, edo bateratu, bat betidanik izan baita. Batu, batu euskera, deadarka nire inguruan. Batu, ene, pardel baten edo, ta beste eskualde batera joan bearko ote dogu ba? Ez nago sasoi onetan ibilladi luzegiak egiteko, txo. Entzun ondo ia zer diñoen. Ta baietz, batu bear dala argiro diñoste lau aldetatik. Ia, ba.

Orainarte angoak eta emengoak ez naz orretarako gauza esaten eben alkar ulertuz (esakera ori lez beste amaikatxo ekarri neikez eredutzat) ta gerotxuago, kapataz edo ulertuko gendualako bildurrez, erdiko (erdipurdiko) beste au asmatu dauskue: ni ez naz kapable...

Lekutara nire orainarteko pakea euskal baratzan. Kezkatzen ta bildurtzen ere asi nintzan. Ene, zer datorren emen, mutil¡ Ta euskal-idazleok kapable ete garean jakiteko joan nintzan osagilleagana. Beingo baten baretu ninduan arrazoi ederrak emonaz. Dana-dala, bake-baketan egon nai ba'dozu, jo erriko albaiteruagana ia zer diñotzun.

Ara jauna, auxe dakart gaurko gaitzat... Ez estutu, erantzun eustan, ta es larritu. Nai izan ezkero... baiña, utz dagigun zer au, gizona. Txikitatik ezaguizen zaitut-eta. Zu Jaungoikoak egiñiko abere gogo-adimenduna zara-ta, jarraitu aurrera beti legez. Nigaitik ez izan bildurrik. Neuri orainarte kapable bezela txarriak-eta bakarrik ekarri daustez. Benetan, lagun, baretu zaitez eta joan etxera zure artikulua lasai idaztera...

Etxebarria'tar Juan Anjel

EUSKERAREN BATASUNA...?

Euskel-idazle gorenengoa izatea nai ba-dozu,
arau onetan diñotzudana
gogoan artu egizu:

Euskel-yoskera bastertu eta
erdel-itzak erabili
euskerazko idazkietan
al dan guztian... ugari!

Baña batez be gaurko prolemak
aztu bagarik aitatu,
beti be ori bearreko da
nai bou Euskera sendatu.

Or eta emen H **bat sartu**
perejillaren antzera,
idazle danok eldu gaitezan
Euskera **batu batera.**

Batasuna **da lege nausia,**
naiz ta «burukeri» izan,
nai bozu izan, gaur egunean
euskel-idazle benetan.

Euskera «garbiz» erabilizuz
«moderno» «konkreto» ta abar
«realitate» «positibo» az...
ziur «batasuna» dakar.

Giputz itz batzuk Zuberoa ta
Napar ta Bizkaikoakaz
naste bat egin eta or zagoz
Euskera barri batuaz.

Orixe dozu ba igarri barik
Euskeraren batasuna
naiz ta norbaitzuk orreri deitu
Euskera naste izuna.

SANTAÑES

ZER JAZO DA IRUÑA'N

Orrilla'ren 3'gngo Zeruko Argian, asmakizun ederra ezarri dauskue: ser jazo da Iruña'n? Eta Euskalerri osoa zalantzean.

Zenbaki aretan izen-ordezpeko batek mordoilloa egin dau, egiaren intxaurra ezkutatu ondoren. Artisteari txaloa; idatzi makur aretan ez da iñoiz ikastolea ageri, or dago baña korapilloa. Iruña'koa jakin gura leukenak, irakurri dagiala.

Zer jazo da Iruña'n? Beste lekuetan lez: IKASTOLARENA.

Eta zer dogu ori, garrantzi txikiko gauzea? Ez eban ola uste, Euskaltzaindi'ko Satrustegui abade jaunak, bere «Aingeru txuriak» idatzi ebanean; izugarrizko salakera a! («Principe de Viana» 46gn; eta Z. Argia 354gn).

Beste errialdeei begira Satrustegui'k esan eban guztia, Naparroa'n bertan gertatzen zana zan. «Uzkuan daukanak, besteari... korotza!»...

Iruña'ko andereño taldeari esan dautse «JAUNGOIKORIK EZ AITATZEKO; aurrari saldukeria litzakela..., 18 urtetara eltzean aurrak konturatuko dira-ta ez dagola Jaungoikorik».

Beste gauza arrigarria: «Esan bear dogu euskal nortasunaren goraltzea, RAZISMOA dala». «Ez da euskerea berez, «ideal» bat; ez, euskal kultura be».

Jaungoikoa ta Euskalerria baztartuta, ikastoletan zer irakatsi bear? Pedagoji «barria» k dakarrena. Emengo ikastola «barria» ren zabaltzaille batek: «Pedagojia ez da irakas-bidea; barruko mamiña baño.

Gai «barriak»: eziera «SOZIALA», ez ikas-gai banaka bat lez, beste guztietan agertuko dana baño».

Eta ARAGIZKOA. «Bere illeko aldia ezagutu bear dau neskatoak, «amodio askatua», arrisku bage, bizitzeko». «Asieratik, ikastolak —Pedagoji «barria» ren legez— erabakia dau onen bearra: neska-mutillen arteko naste-azitzea». Eta «aragizkoaren irakaspena»; siñes-bageko Lafora jaunaren liburutik, ezta?

Andereño napar GUZTIAK, orren kontra. «Junta» deritzena, barriz, andereñoegaz asarre; ta «ordaiña artuko dabela». Bitartean beste itzlari bat —noren baimenagaz?— etorri zan; orren aotik gauzak! «Ikastolan eta kalean, andereño bakoitzak COMISARIO POLITICO izan bear dabela». Eta Eleizaren aurka, makiña bat gauza!

Sasi-«trintxerpe» orrek diño au danau, ergelkeria: «Inkisiziñoaren denporako ergelkeriak». Olako beste bati —ala, ber-berari ete?— Iruña'n andereño baten amak esan eutson; —«I, mutil, gazteegia aut; Jaungoikoa, barriz, zarra; betikoa gañera!» (Gure «erria» gaurko barritsuak baño sentsundunago...; baña, dogmatikeri kaltegarrian labanka).

«Itoten gaituez», esan eustan andereñoetako batek nere laguntza eskean. Ni baño, abade zar eta zurragoagana bialdu neban taldea; andereñoak itzegin, ta guztia idatzi zan. Orrenbeste ijini gaiztozko zuldarra lertu zan: ango zorna!

Ikastolaren buruetako bategaz, sei orduko alkarrizketan ni: ixilik anka daitean; bai orixe! Leitza'ko errian diñoenez, «txarkeria besterik ez dabe egin, eta eurak gayagogaz dare».

Maltzurkeri aundiagaz —egia erdizka, guzurra ao betez— zabaldu ebezan gauzak: —«Zerbait gertatu dala, baña ebagia izan zala». «Ikastolea, toki txarragaitik, itxi-arriskuan egola». «Norbait besaulki zabal baten billa, dabillela, edo».

Bide makur orretatik, eurenganatu dabez ainbat guraso, Naparroa'n izen-andiko jaun batzuk, eta Kardenal jaunaren inguruko eliz-gizonak. Gañetik egin dauskue, jakina! zapaldu be, ta zikindu. Olakoak agertzen gara kutsu orren aurka dagozan andereñoak; abade laguntzale biok; eta orren eskubidea zeaztu daben «Euskalerriaren Adiskideak».

Itz baten, Aste Santu onetan —Kristo'ren erara— Egia gelditu zan josita.

Amaitu baño lenago, nor zaitugu «Gorka Trintxerpe» ori? Euskalerria zalantzatik etara egizu; ta zu be bai, trintxera-petik urten. Iruña'n gertatutakoa esateko ez dogu aita ukatu bear; nik, beintzat, ez dot egiten.

Aita zanagandik ikasia dot Jaungoikoa ta Euskalerria maite izaten. Eta zatorrak eizatzen, ez atxurretan, bai zirika: nere abizenez. Ba dakit ez dala zurea aiña zabal; baña, luzeagoa bai: lan orretarako egokia.

«Apez jeina —esan eustan, orain ogei urte, erronkariar batek— ba dakizia zore izenburia zer den? Garde ta makila, orobat. Ni aurra nintzenian, amanderiak erraitan zien: —Aurra, artzak «garde» kori eta eramaitzak txerriak egoatxara!».

Ez da ezergaitik; baña, zuk bein esan eustazunez, «parkatu bear dozu dana».

MARCELINO GARDE

(Egillearen baimenagaz bizkaieratua)

Ikastolen Kezkak eta pozak

Zeruko Argiako azken zenbakietan ekaitzaren odei illunak susmatzen dira nun nai.

Garde Jaunaren lana, zabalkundea eskatzen dauan ezkero, argitaratzea erabagi dau «Agur» en batzordeak.

Zeruko Argian beste bizkaitar baten eskaria edo asmo erakustea be irakurri dogu ikastolari buruz; Andik amabost egun garrenean, Jose Lasa Jaunak argi ta garbi erantzuten dautso, gauzak bear diran tokian jarririk. Egia esan, karetak edo «ardi narruak» bizkar ganetik kentzeko garaia eldu dala aitortu geinke.

Bizkaian, Jaunari ezkerrak, ekaitza itxas ertzetik urrun dabillela dirudi. *Izan dira emen be alkar-izketa gogorrak, ekintza oker ulertuak eta abar, baña borondate onagaz danok bagabiltz, apurka, apurka, alkartasuneruntz jo bearko dogu.*

Eleizearen babesean egingo dan alkarte ori neurriz egin bearko da. Iritzi ezbardiñak beste arlo batzuetarako gorde, gure umeen eziketari zor dautsagun indar guztia emonaz.

Eleizak berak gertatu bearko ditu araudiak, alkarte orren zuzendari taldea eta abar. Ikastolak, gurasoen arteko autezkunde bidez aukeratu bearko dabez euren ordezkariak. Danon artean gero ea gure txalupatxo makala, Estaduak antolatu dauan Irakaskintzako itxaso zabalak iruntzi barik eutsi al dogun.

Asmo guzti onek aurrera eroateko mallak, banan banan, igon bearko doguz; norberaren iritziak sarri besteanak obeak dirala ikusi ezkero, alde batera itxita. Milla bider eskatu bear dogu gure alkar-izketa guztietan borondate ona «mai burutzat» jarri daigula; ardi narrurik ez daigula inoiz erabili, bestela, ta orretan ziur nago, gureak egin dau¡

Urrillean Begoñazpiko ikastolatxoa zabalduko da. Apal, apalik, etorkizun ederrago ta sakonagoari bidea zabaltzeko. Au dala ta txarto ulertze bategaitik gure lagun batzuk mindu dira; iñork ez dau baña, borondate txarrik izan eta orain gauzak argitu dira. Alkar-izketak, buruz buru, alkarreri begietara begira egiten badoguz dana konponduko da.

Barri emote onetan pozgarriena, aspaldien gurasoen artean sortu dan euskeraganako zaletasuna da. Parroki bakoitzean ikastola edo «umeen baratz» bat sabaltzen badogu urte batzuk barru artuko dau gure erriak landaratxo barri onen frutua.

ILINTI

GAZTA

EUSKAL ERRIARENTZAT



JAYO ASI TA EZI

NORTZUK DIRA ZARRAK?

Zoritxarrez, idazle batzuen tartean sortu dan burrukeari, zar eta gazteen burrukea deritxoe bateron batzuk. Ez jauna! Ez da ori!

Ez da gazteen eta zarren arteko burrukea. Gaztedi galanta, bikaña ta kementsua darabilgu bultza-bultzaka, diñoguna egiztatzeko, geu bere orixe garalako, zar-gazte garalako.

Geure izkuntzaren aldez ekiteko, zar eta gazte, danok! alkartuta gagozala dakitelako.

Ona dago gaztedia aiko-maikotan ibilteko! Geure pitxirik maitiena amilbidetik eroan nai dabenekin ibilteko! Oonak dagoz zarrak euren asko-ikusia ta ikasia bastarrean lagatzeko!

Gazteen eta zarren burrukea? Baita zera be! Guk, alan esango genduke: Gazterik zartu diranen arteko burrukea dala; oneik, euren buruarekin darabilien burrukea, barruko kezkea, ziurtasunik eza.

Euskera aldez lan egiteko ez dogu bereizten zarrik eta gazterik. Danok gara bardin, gazterik zartu diranak izan ezik.

Beraz, gazteen izenarekin ez daiala iñok bere burua gorde. Arren!

Estalkiak urratzeko gertu gagoz.

Gazte gera, gazte
ta ez gaude konforme,
euskaltzale zarrekaz
bat batean gaude.

Euskera gaizkatzera
zatoz ene maite;
bardin da, zarra izan
naiz ba'zera gazte.

ZAR-GAZTE

MENDIGOIZALEAI ESKARI BAT

Igaro genduban udazkenan, Bizkai aldia euri lanpar da lañoberaz argitu zan igande baten da, eguzkia aurkitu gurian, urten gintzazan geure sendia artuta arabar aldeko Errioxa'ra, Biazterri (Laguardia)'ra. Bertan, eguzki ederretan ordubatsukigarooz ikusi gendubazen bertako txadon ertitsua, antziñako gaztelua eta bai-ta antziñako arreseal, murallak, guztiak ikusgarriak diralako euzkosemeontzat. Atseden orduak, baiña, laster igaroten dira-ta, barriz urten gintza zan etxerantza, baiña, onantzian bide leunik, leun barik «Herera» ganetik, Kantabria mendidi zorrotza eta Errioxa ta Aaraba'ko zeleikadak gure sendiri goi-aldetik pizkat erakutziteko asmuaz.

«Herera» ganera eldu ondoren, bertan berebilleetan emaztia ta illoba txikitxu bi itxi-ta besteok igon genduban antziña Leon Deuna (San Leon) basatxonua, ermita egon dako aitz mustur zorrotzera, Araba ta Errioxa'rik geienak ikusten diran berezko ikuspegi edo observatorio bikaiñera; zerbaitegaitik esaten dautse alderdi orrei, Errioxa'ko txeigüa (Balcon de la Rioja), eta ziyo andiaz. Eta, aitzarte alai artan gengozala, bertan entzuten diran erdel itzak entzunik sortu zan gure barrenian, mendi orren da beste askoren izen jatorrizkoak, euzkel izenak jakiteko gurari zakona; ori da idazlantxu onen ziyoa, errazoia, zegaitik ze guztiz erderalduta aurkitzen diralako mendidi oratako izenik geienak.

Kantabria mendidian, kordilleran. jazoten dana berbera jazoten-da Araba'rik geienian, Naparra'ko eskualde askotan da bai gure Bizkai'ko Enkartaziño alderdi guztian eta, zelen ez, iparraldeko Euskalerria'nbe, au da; euzkera galduaz edo galdu dan alderdi guztietan, gaztelera ta prantzezera jabetuaz edo naztuaz. Baiña, lurralde orreen izenak guztiz erderaldu baiño leen da erderalduta dagozanan izen jatorran aztarrenak aldendu baiño leen zerbait eginbearrian gagoz da, eginbear dogu euzkera ta euzko gai guztiak maite doguzanok. Eta, orretarako, nor egokiagorik gure mendi, baserri, erri ta txoko guztiak ezagutuaz antziñako itunbe ta agiri zaarrak aztertuaz euskel-izen jatorrak batu-ta zabaltzeko mendigoizale gazte kementsuak baiño¿ Guk orretara uste dogu, euren zoiñak aize garbiz zendotzen dabezan bitartian euren lurraldia iñork baiño obeto ezagutzeko asmu aberkoiaz dabiltzalako geien-geinak beintzat.

Guk azaldu naidogun arazo au, ba-dakigu erreza ez-dana, eragozpenik asko aurkitzen dalako gurari orreek lortuteko, baiña, ezta eziñekua, dana ezpa-da be zerbait eta beraz aberastu egingo genduke euzko-jakintza ta nortasuna. Ori da euzko mendigoizaleai egiten dautsegun eskaria.

Altuna'tar Josu

EUSKAL GAZTEDIARI...

EUSKAL EZIKETA

Munduko erri guztiena lez, gure erriren etorkisuna gaztediaren eskuetan orain ezbadago bere, izango da.

Gure erri au zelakoa izango dan beraz, gaurko gure gaztediaren eziketak esango dausku. Gazteak eta ez ain gazteak arrokeriz itsutzen gara sarritan, gaurko adiñeko edo zaarrak atzoko gazteak izan ziranik ez dogu ikusten. Nere bizitzako gora-beerak korapillo onen erdian ibiltea zer dan argi erakutsi daust. Atzoko gazteen, gaurko adiñekoen, planteamentu eta batez bere, gizartea ez dogu atsegin aurkitzen, oiñarri uts eta uztelen gañean egiña eta finkatua ikusten dogu, ez dot uzte baña txarto ikusten dogunik. Gauza asko dagoz goitik beera aldatu bearrean, baña gizarte au apurtu ondoren, estrukturak aldatu ondoren edo aldatzeko bidean jarri ondoren, zer egingo?, nundik asiko gara? - Or dago ba untzea! Demagoji bidez zarataka ekitea errezena da, miñez edo teoriz aldakuntzak eta iraultza asmatzea errezena da, beste errietako ta norberaren erriko estruktura, gizarte, alkarte ta gizonari kritika zorrotz ta mingarria egitea gauza erreza da. Baña gero zer egingo dogun itandu ezkero, len esan dodan lez, teori utsetan galtzen gara. Teorik orreik edo geienak beintzat atzerrian jasoak doguz. Xenofobiak eraginda ez dot esango txarrak diranik, ez olakorik; Ideoloji aldetik begiratuta teori geienak gauza on asko daukiez baña gero teoriak ekintza edo egiñak biurtzen diranean neurtu eziñeko oztopo ta eragozpenez beterik agertzen jakuz. Zer gertatzen da gaur gure gazte batzuen jokaera edo pentzakerari buruz ikasketa zeatz bat egiten badogu?

Euskalduntasuna (Intelectual geienak lez) txikitzat eta atzeratutzat botarik atzerriko «aiseakaz» bai buruz ta bai biotzez itsutzen asi dirala.

Ideoloji ta teori orrek ez dira «narru gorrian» sartzen asi, euskal kutsuz jantzita datorkiguz ta margo ederdun amu ori gazte askok errez iruntsi dau, jakiña! askatasun ta erri-zaletasun goseak eraginda. Munduan gaur gañezkatuak dagozan ideoloji ta bizi-bide asko, igerri barik, geure buruetan sartzen asi jakuz. Ideoloji orreik alde on asko dituzte, ori ezin ukatu, baña gure artera jokaera ezetzkor ugari ekarri dabez. Batez be «elburuak bideak onak egiten ditu» edo erderaz esaten dan «el fin justifica los medios» orrek geure alkar izketara zintzotasunik eza ekarri dau; gaur ez dakizu nor - nor dan eta zer nai daben. Buruz-buru irriparrez izketan eta atzetik azpijana egiten. Askatasuna ta eskubideak eskatzen eta besteari, gogorkeriz, gure iritziak iruntsi eragiten. Abo batez batasuna eskatzen eta alkarreri egin dautsaguzan sauriak urratzen...

Atzerritar teori orreik sartzen asi diranetik beste bide laban asko erakusten dauzkue: Umeen eziketa estadu edo gizartearen eskubidea dala (gurasoak aaztu rik); eskontza errez apurtu geinken kontratu bat besterik ez dala; sexual experientziak, beste erri «aurreratsuen» antzera, eskondu aurretik egitea ondo dagola. Gizona artaldeko edozein ardia lez, talde edo alderdi batek aukeratutako artzai bateri jarraitu bear dautsola eta abar eta abar... Jakiña! Talde orren eskuetan izango da diruaren jabetasuna ta ekonomiaren aurrera bidea. Ez jaunak, guk ezin dogu olakorik onartu; guk, euskaldunok geure izakera ta geure nortasuna daukagu; badakigu nortasun onek akatz asko izango ditula baña nortasun ori galtzen badogu beste erriaren izakeraren itxas-urean urtuko gara eta orduan esan geinke: Gureak egin dau.

Zelan aldatzen da gure pentsakera, askotan norberak igerri barik? Lelengo pausoa mundu zabalera begira jartzea izaten da eta urrengoa Euskal Erria txiki ikustea, problema gañeratua lez ikustea. Aldakuntza au ez da gaurkoa, betikoa baño; alan bere gaur gazte kementsuenen artean erne dan landara barri ori, kaltegarria da.

Ez dozuez orrela pentzatzen daben gazteak zuen inguruan ikusten?

Ez adizkideak, guk ez dauts egu gure nortasunari atzea emon bearrik. Gure edestia aintzat arturik etorkisuna oiñarritu bear dogu; ez dago atzera edo istoriar; begira bizi bearrik baña gure aurretik bizi izan diraneen jokaera bear dan lez estudiatu, kritika emonkor eta zintzo bat egin eta bear bada aribidetzat artu.

Edestirik ez daukan erririk ez dago, luzea edo laburra, alaia edo negargarria, aberatsa edo txiroa, baña erriak euren edestian zustraitzen dira beti; edestiaren ekintza ezetzkorrak aaztu baña baietzkorrak onartu.

Gaurko gazteak ortik asi bear dogu gure eziketa, gure edestia ikasten.

Aldizkari onen orrialeak zuen keska ta itandueri erantzun bat emoten aleginduko da edo obeto esateko, zeuek erabilteko zabalik izango da. Zuen eta gure erri osoaren problemari, asmoari, iritziari eta abar, (al dan neurrian beintzat) lasaitasunez, zintzotasunez beterik oratuko dautsegu.

Gure elburua? Euskal Erriarentzat jayo, asi ta ezi, au da, erri onetan jayo edo jayo ez arren emen bizi diran euskaldunak, euskal kutsuan asi, gizon egin eta gure lagunari iritzi ezbardiñekoa izan arren «bota bosteko ori» esateko gertu izan; alkar izketaren bidez, askotan, gure arteko zuloa leiza biurtu orduko konponduko dogu... eta ori bear-bearrezkoa da gaurko giroan.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKAL-MEZAK BILBAO'N

Labunbatetan:	Ordua:
Indautxu'ko Karmel'en-S. Bolibar, 4	18
Iralabarriko Pantzeskarretan-Iturriza, 4	18-1/2
Zurbaraneko Sakramentinoetan-Buen Pastor, 2	20-1/2
Igande ta jai-egunetan:	
Begoña'ko Karmel'en-Camino del Carmelo, 10	9
Deusto'ko Pelitzisimo Deunarenean-Madariaga, 25	10-1/2
Deusto'ko Kepa Deunarenean-S. Pedro enparantzan	11
Begoñazpi'ko Miren Deunarenean-Begoñazpi	11
Anton Deunarenean-Santos Juanes enparantzan	11-1/2
Corpus-Christi Txadonean-M. Díaz de Haro	19-1/2

IKASTAROA

IRAKURTEN IKASI

Ara emen irakurgai errazak. Egin ete-dozue lenago esan gentzuna? Batu zäiteze taldeka, iru edo lau, irakurri batek eta besteak entzun. Gero, txandaka danok bardin irakurri, astiro, arrapataka bage. Laster jarriko zaree erraz-erraz irakurten; lenengo nekea, oetik jagitea lez, belaxe aztuten da.

NEGAR ETA BARRE

—Bai al dakizu zergaitik emakumeak meza laguntzen ez dabien?

—Itandu baiño lenago erantzuten dabielako.

* * *

—Portugues bat eldu zan ostatu batera gau erdian. Ordu artan dandanak lo egozan; ta jaiki zan atezaiña. Galdetzen dau atea iriki bage:

—Nor da?

—Ni; Francisco de Paula Dos Santos Leite de Oliveira Salvador Silva Cautodo Merenhao Pereira.

—Parkatu: oe bat besterik ez daukogu.

* * *

Joan zan gizon bat osakai bila, botikara, ta bertara eldutean, botikarioa kanpora joian bi maleta aundirekin.

Osakai bila joan zanak esan eutson botikarioari, sendatzeko zerbait emoteko, eta botikarioak bi maletak emon eutsozan geltokira eroateko.

* * *

Emazteak senarrari:

—Zizilio; ogetabost urte dira biar ezkondu ginala. Eguna ospatuteko, nai al dozu oilasko bat il daigun?

—Baina emakumea; oislasko gaxo orrek zer ikusteko dau guk orain ogetabost urte egindako astakeriarekin?

* * *

Bein erri baten zapatari bat bizi zan. Neguko egun gorri batez papargorri, txindor bat bere lantegian sartu jakon. Otzez dardaraz ta gosez ia ila egoan. Eta zapataria biotz onekoa zalako, ogi-apurrekin asetzen eban. Txindorra kantari ta pozik ebilan. Baina egun batez, udabarriko egun gozoak etorri ziranean, igesik joan zan.

Zapataria naigabez geratu. Baina San Iñasio inguruko egunak etorri ziranean, sei txori eder sartu jakozan bere lantegian. Bat, aundina, zapatariaren buru-gainean lotu zan. Beste bi sorbalda banatan, kantari, ta besteak saltoka ta egazka zapata artean.

Zer ziran txori areik? Aundiena udabarriko txindor axe, ta beste bostak, bere kabian izan ebazan umeak. Kantuka ta saltoka mila esker emoten ebiltzazan zapatariari.

Eta orain, izkirimiri oneri buruz esan dagidan:

Txindorra txori etxekoia dozu. Erbestetik etorririko zozo bat izan balitz, juango ete zan eskerrak emotera zapatariarengana?

ABELETXE

KONTU KONTARI

PIÑU - GORRI

Gure etxeosteko piñu gorria ebagi dabe. Galiziako mutil piñu-ebagitailleak ebagi dabe gaur goizean.

Mendirako bide baztarrean egon da beti. An ezagutu dogu guk gure akorduan, sendo eta gogor, gerri gorri eta guardasol aundi baten antzeko orri kapela zabalagaz.

Kerizpe ederra emoten euskun eguzki egunetan, edo aterpea euria egiten ebanean.

Ara joaten giñan olgetan txikiak giñala, piñugorriaren ingurura, ausoko mutillagunak. Gure txakurra be geugaz etorten zan, eta geugaz batera olgetan eban.

Piñugorriaren adarretara igoten geiñun mutikuok, eta beian gelditzen zan gure txakur baltza. Arek be gora igotea gure izaten eban, baiña beian gelditu bear gixajoak, eta ausika asten zan orduan. Eta barre ta barre guk, goitik, eta abar-zatiak botaten geuntzazan ernegazotearren.

Zenbat gauza ekarten deustazan gogora piñugorri bakarrak. Bere ingurutik ibili ziran alde bietako guda mutillak gerratean. Zenbat gauza entzun eta ikusiko ebazan, bere modura, Piñugorriak.

Urteak aurrera joan eta gero be, bere kerizpetara joaten nintzan irakurten. An irakurri nebazan lenengoko euskal liburuak: Etxeitaren eleberriak, olerkiak etabar.

Piñu barriz bete dira inguruak azkenengo urteetan, eta beste danakaz batera joan da gure gaztetako Piñugorri, **ezagutu genduzan agura zar atsegin batzuen antzera.**

Zallako paper-fabrikara eroan dabez ebagita gerriko mukurrak, trator-kamioian. Agura zar bat ateuta barruan lez. AGUR aldizkari barri au egiteko papera egitea beragaz, baleiteke.

Agur egin deutsagu etxekuok, ebagi ta jausi danean, eta orain barriro errege bideruntza gure etxe-aurretik eruan dabienean.

Eta barriro be etxeratuko jakula usteagaz gelditu gara etxekuok: Bizkaiko euskeraz apainduta etorriko jakun AGUR aldizkari onetan.

Agur ba, Piñugorri, **eta laster arte.**

ÑAPUR-ZARRA

ANTXIÑAKOAK IZARO

Izaro ugartea,
Izaro, Izaro,
Laida'tik ur-urrian,
luzaro, luzaro,
itxasoen altzuan
azke ta gozaro,
iñoiz gogaitu barik
beti antxe dago.

Goyan zerua eta
beyan itxasoa,
onek damotsolarik
besarka gozoa;
bera da ugazaba,
bera gurasoa,
beti azke bizi dan
zorionekoa.

Urtiak igaro ta
urtiak igaro,
ez zartu ez gaztetu,
sen batian dago,
zirkiñik egin barik
arau ez onago.
Gaurko gizonok baño
zerbait sendoago!

URRETXINDORRA

(Milla Euskal-Olerki Eder)

BASETXEKO SEMEA

Sollube gaiñean daukat
neure oiña
ta nire gogoa
egaz doakit
urdin garden zear
be aldeko zabaldira.
Ibar amultsuan
eta gain bizkarretan dakusdaz
Bizkaiko erri politak.

Ta, zu, Mungia,
zeure ingurukoetan
aundiena,
eusko langille eta
basetxe ederrez josita,
pozik, bizi al zara?

Oka ibai bigurria
solo zabalak zear doa,
erriak otseinduz,
baratzak intzetan lastanduz,
itxas urdin amarengana
kresal arte gozora.

Lengo baserri zarrak
eguzkira adi,
ain maitagarri ziranak,
burruka joranez
landu nai zinduezenak,
zeri begira zagozez...
Gaur, nor bizi da or.
soloak erdi-illik,
euskal seme bagarik,
ez abestirik,
ez ume laztanik.

Urira iges joan ziran,
mendi sendoak
ibar amultsuak,
bakardadean,
bertan bera itzita.

Eusko basetxeko semea,
zeure gogoa egin zenduan,
ta orain, pozik, al zagoz
ibai ertzeko lantegian,
ugezabaren menpean
semeentzako ogia lortzen
ordurik ordura ekiñalean?

PAULIN

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik:

Ona ni emen gaixoa antzar baten luma eskuan dodala, gure erriko gorabeerak edestuteko gerturik. Bai, neure txorikideek emengo izparkaritzat izendatu nabe. Ni gaixoa...! Gauzak aldatzbeera nere aurka etorri dira ta neronek konturatu orduko, ezin izan dot matasatik urten. Ona emen gauzak zelan aurkeztu diran...

Leengo egunean oi bezela illunabar irian neure sasi-arteko kabira yoateko zorian nintzala gaueko besoetan neure atseden-aldia izateko, Iturribieta'ko larratxoria agertu yatan esanaz urrengo goizaldean Ariztizabal'eko baso-soillean txori guztientzako batzar bat izango zala, ta txepetxen ordezkaritzat an azaldu bear nintzala...

Gau osoa erdi itxarturik igaro neban, zertarako izango zan urrengo eguneko batzarra buruan nerabillela, ta batez bere zergaitik ni txepetxen ordezkaria aukeratu.

Eguzki-printzek gure Agiñalde'ko basetxe zaarrako orma argitsuak laztandu ebezanean, arrausi batzuk egin, egoak luzatu, lumak atondu, ta tximista baizen arin Ariztizabal'erantz eguratsean zear murgildu nintzan.

Ara eldu nintzanerako, txori-mota guztitariko ordezkariak an ziran yadanik. Sasi bateko erpiñean kokatu nintzan eta batzarreko asiera itxaroten nebala, aldameneko txoko guztiak begiz arakatzen asi nebazan. Bai, batzarra garrantzi aundikoa izango zan urrean, ez bait-eban egazti bat bere uts egiten. Nabari zan batez bere, erriko ormatxori arlotea an-emenka ebillela danori lotsagabe begiratuaz, yanari-billatzeari itxi barik. Onela niarduela baiñan, ara nun gure Ariztizabal'eko urretxindorraren abots zoragarria aditu zan esaten ebala:

—Neure txori maiteok, parkatu zuek guztiok ona dei izatea, baiñan guretzako garrantzi aundiko gertaera bat yazo da gure errian. Orain egun asko ez dirala, Bilbeo'n gure erri nagusian euskera darabillen AGUR izeneko illeroko bat agertu da ta euskaldun utsak garan ezkero, gure arteko izparkari bat autu bear dogu, erriko gertaera nabarmenenak aldizkari orren bidez nun-nai sakabana-tzeko, olan gure erriko izena ezagun-arazteko. Beraz, batzar au dei egin dot barriegille bat izendatu daigun...

Entzuteko bai orduan sortu zan iskanbilla...! Danok batera itz egitea gura izan genduan eta bakoitzak bere eran barruko poza azaldu nai eban txio ta txioka. Ni bere bai oso pozik aurkitu nintzan, baiñan alako batean ustekabez barruko zalantz batek atzitu ninduan... Zer eta ni izparkaritzat aukeratuta izango ba'nintz? Bildur esangaitz batek nitzaz yabetu zan eta bat-batean ixildu nintzan, sasi-erpiñeko adarrean neure gorputz ñimiño eskutatzen gura nebala, ego ta lumak baturik. Onela iraun neban luzaro samar. Alako batean, gure urretxindorraren txio maitagarriak oroz gain aditu ziran eta guztiok ixildu gintzazan bere edertasunaz nagusiturik.

—Aukeratu bear dogun barriegilleak baldintz batzuk bete bear izango dauz. Zuzentasuna, egia ta maitasuna bere elburuak izango dira, bere lumea bikaiñenetarikoa ez ba'da bere. Erriko yazokera guztiak yakingo dauz eta gertakizunen bati uts egingo ba'leyo besteok yakin-araziko dautsogu. Orain beraz, aukera egizue zuen iritziz gai ortarako egokien izan leikeana...

Gure urretxindorra olan ziarduela, aize-zartada batek neure sasi-erpiña yo, ta nik oreka (egokitasuna) ez galtzearren aize-errota baten antzera, adar-gaiñean egoak astindu nebazan. Bildurrezko zirrara batek iñarrosi ninduan... Egazti guztiak antza, sasi-gaiñean nerabillen dantza ganorabakoa ikusten ari ziran, eta orduantxe neure suzmo illunak bete ziran, kukuaren itz maltzurrak zalantzaz beterik entzuten nebazala:

—Zergaitik ez izparkaritzat autu gure Agiñalde'ko txepetxa? Ain txikia danez toki guztietan sartzeko gai da, ta gaiñera bide-ertzetako sasien artean sarri irauten dauenez, ereti onak ditu ezpairik gabe bidarien gorabeerak entzuteko.

Bildur izugarri batek neure erantzumena ezereztu eustan. Azkenean, nai-indarraldi baten ondoren abots totelaz esan neban:

—Ara bada, neuk ez dakit...

—Ez dakizula? —erantzun eustan ormatxori lotsagabeak ar lodi bat yaten ari zala— Bai zera...! Zeuk zure intxaurra txoko guztietan sartu, ta gero ez dakizula esan?

Txori zital arek neure buruari intxaurra deitzen eustala entzundakoan, iñoizkorik asarratuen, pipertuta asi nintzan:

—Nere buruari intxaurra esan? Txori ganorabako ori...! Bai zu lotsagabe ta barritsua...! beti besteen lepotik yaten, txori kaletar ori...!

Baiñan berandoegi zan yadanik. Egazti guztiek txio ta txioka asi eben eta abo batez gure erriko barriegillea, nere zoritxarrerako izendatu ninduten...!

Nengoen adarretik lurrera yausteko zorian nintzan naigabe utsaz, baiñan dana alperrik. Azkenean baietza emon bear izan neban. Yarraiki, antzar aundi bat urreratu yatan eta ego bateko luma lodia erauziaz, eskeiñi eustan itz oneikaz:

—Tori, ona emen zure lanabesa.


Arexek ziran orduan txalo ta deadarrak, danok zoroak biurtu bai'liran. Andik laister bana-banaka egaztiak alde egin eben eta bakarrik geratu nintzan neure antzarreko luma lodia ta naigabearekin. Astiro-astiro besetxe ondoan neukan kabira bideratu nintzan, zelango izparrak AGUR aldizkariari bialduko neuskioz buruan nerabillela.

Eta ona emen ni gaixoa antzar baten luma eskuan dodala illeroko onen lankide biurtuta. Izan nitzaz erruki ta onen ordaiñez bioa zuentzako neure agurrik zintzoena.

Agiñalde'ko Txepetxa.

KIROLAK

GAZTE ARTEKO TXIRRINDUKETAK



Barriro be esan bear, Euskalerriko txirrindulari zaletsuen arteko ekiñaldiak daroa gaztearen joera guztia. Gaur Izagirre gipuzkoarra dabil buru danen aurretik. Mutil onek, igaz Gipuzkoar Txirrindu-Batzarraren saria irabazi eban, aurten be aurrenengo agertu yaku sarri, bere zeaztasun eta bere sprint azkar orren indarrez. Ala ta bere, dana esan bear eta, Kas taldekoen ortik zear, beste lasterketetara joan bearrak, gure ekiñaldi onetatik baztartu egin dauz, ta orrela Xey taldea aurretik darabil, Izagirre onen bidez. Sanantonioetan be Durango'n talde onetakoak izan dira nagusi; Murillo irabazle izan dala, aurretik geratu dira.

Zaletsu arteko 2n. B eta Gazteen arteko A mallakoen artean, Bizkai'ko Txirrindu-Batzarraren txapelketan be, aldaketa batzuk izan doguz. Aurretik jarri yaku Ayesta'tar José Luis, Zornotza'ko Txirrindu Alkartekoa, Durango'n be bigarren geratu da. Mutil sendo au, une onetan bere onenean dabil.

Goimar-Mungia taldeak ostera, aldi txar bat daroa, Martinez jatorraren jaustearen ondoren, Calvo'k aurtengoa galdu dabela esan bear, sorbalda azurra eten dau-ta. Arin-arin osatu dadilla opa dautsagu.

Zelan ez? Aipatu bearrean gagoz ain jator datozan beste gazte bi. Ikusi gero, estu erabilliko dabez azken orduko txapelketea jabetzera alegintzen diran beste gorengo asko. Nortzuk izango ta, artu gogoan: Areitio'tar Genaro (S. C. Amorebieta) ta Albisu'tar Jaime (La Casera).

Ara gure gazteen ekiñaldiak. Orain, Tour orren alboan erdi galduta geratuko yakoez askori, onengandik etorriko dira baña urrengo Tour eta beste olako lasterketa ederrak jantziko dabezan mutil gordiñak.

BURPIL

ONDARRUKO LERTXUNDI ANAYAK

Euskal Errian badago elerti guztietan berezko doaia dauan errirík; erri ori Ondarru dozu. Euskal idazleen artean, zenbat Txomin Agirreren mallako? Baña, len, orain eta beti euskal eresian izan da errirík aberatzenetarikoa. Amabi urte inguru dirala, Arriagan ikusi nebazan (ikusi ta entzun) ondarrutar antzelari bikainak, Agustin Zabikaray idazle ospetsuaren «Seaska inguruan» eta «Kresaletan» antzestutzen. A zan abestiaren gozotasuna! Areik ziran abotz ederrak!

Arreskero Ondarru obetotxuago ezagutu dot; Argoitia anayak, Saez bikotea, Beti Alaiko neska jatorrak eta abar..., ez dakit nik zenbat abeslari ta dantzari dituan erri eder orrek, txapelketa geienetan garaitzalle geratzen diranak. Nundik yatorko Ondarruri izakera doaitsu ori? Jainkoak gorde dagiala Euskal Erriaren onerako Ondarruren euskal kutsu ori.

Baña ni gaur ain ezagunak ez diran gurazoen omenez zeozer esaten natorkizue. Gurazo jator onen artean Lazaro «Porru» ta bere emaztea, derrigor aitatu bear. Zeiñek ez dauz ezagutzen ondarrun ta inguruan «Porru» anayak?, Zoriontsua ta bedeinkatua orrelako seme-alaba mordoa dauan ama!


Danok lagun onak izanik euren arteko bat, Imanol dot aparteko adizkidea. Bere abotik jakin dot sendi orren eresi-kutsuaren iturburu zein izan zan. Lazaro «porru» ren abotik, gizon «famau» aren abotik, ikasi ebezan bere seme-alabak ainbat bertso txorta eder. «Porrueneanean» beti izan ei zan eta dago abesbatza gertu. Etxe aretan gabon ta beste jai egun askotan beti eidago alaitasuna; biotzak eta gogo garbiak berez dakarren alaitasuna. Nik Lazaroren semeak eta lobatxoak ezagutu dodaz, Ura euskal urretxindor taldea!

Nun nai ta noiz nai abestutzeko gertu ta, zelan abestu ganera; Ordu osoak egin dodaz nik aren abestiak entzuten. Zazpi morrosko dira guztiz (mutillak): Andoni, Sabin, Imanol, Josu, Gotzon, Andime ta Mikel. Sabiñen abotz sakona, Imanolen buruzko bertso jakituna, ta guztion jatortasuna ezin doguz aaztu. Euren artean Anjel (lagun bat) izaten dabe abestietan laguntzalle. Talde onen abestiak entzuten orduak igerri barik igaroten dira: «Aitorren izkuntz zarra»; «Alargunarenak»; «Markesaren alaba», Enbeita, Andonegi, Baserri ta ez dakit nik zenbaten bertsoak abestuko dautzuz buruz Imanolek.

Eskonduak geienak (Andimek eta Mikelek ez ei dabe prisarik) seme-alaba ugari ta politak izan dabez gaurko «porruneko» anayak. Sendi orren antzeko zugatz asko balego gure errian etorkizun argiagoa ikusiko geunke. Mutil onen jakituria alperrik galtzerik ez geunke nai. Abesti orreik betiko artzeko, disko bat egitea asmatuta zegoan. Ez dago gaur galduta, baña zoritxarrez, itxas ertzean ekaitza baretzen dan antzera giro obeari itxaron bearko dautsagu, orain beintzat «Agur» Aldizkari onen bitartez euren omenez eta Ondarruko erriaren omenez, zeozer esatera beartuta nago. Gure umeak sarri gogoratzen dira euren Ondarruko osabeakaz eta batez bere euregandik ikasi genduzan Enbeita zanaren bertsoak:

Euskaldun batek
Euskal errian
beti erderaz
babadil
Alperrik esan
«soy vascongado»
erdeldun utsa dek ori.

JOSUK



OXFORD TA CAMBRIDGE TA ORIO

Urdiña, oztiña ta oria, aurten be alkarregaz burrukan izango dira. Noiz? Beste aldaketarik ez ba'da, Dagonillaren 2gnean Orio'ko Oria ibayan.

Orreigaz bat, beste arraunketa ederrak be izango ei-dira, bata neskatoen artekoa. Orra ba, oriotarrak bene-benetan kirol eder au goraltzen eta zabaltzen.

Ingalandar ikasleok oso-osoan burrukatzera etorten ez dirala ba' dirudi be, aste alai bat igarotzera euskeldunen artean-edo, igaz oztiñak alegindu ziran gogor aurretik geratzeko, baita lortu be. Ez dakigu nortzuk letorkezan orrein artean, lengo Hornsby, Delafield eta Powell indartsuak eta Hall begi-azkarra oneitatik eta Princhard edo Hawksley urdiñetatik, ikasketan ete-dabiltz oindiño, ala ori amaituta beste gazteagoak etedakarrez? Dana-dala, Cambridge ta Oxford edo Oxford eta Cambridge, ez da gauza txikia.

AIXOLA'K

ATHLETIK

Lerro oneik idaztean ez dakigu gure Athleti txapeldun izango dan edo ez, baña esan nai doguna esateko bardin dauzku.

Kirolak erria lotan jartzeko opioa dala, sarri entzun eta irakurri dogu. Baliteke erdi egia, ori izatea baña gutzat, bilbotar eta bizkaitarrentzat, Athleti ez da ostikalari talde bat bakarrik, zeozer geiago da. Denpora asko ez dala, Pelay Orozko idazle ospetzuaren «Gran País, País difícil» idazti barria irakurri dot, atsegin eta irakurgarria da adizkide orren idaztia. Baña Athletitzaz idazten dabenean ez dakit gure barruan daukagun guztia ondo ikusi daben.

Bilboko izparringi ta irrati geienak Athletiren edo lendakariren aurka dagoz eta batez bere Ronni Allen, emetik urtetzea nai izan dabe. Alegin guztiak egin arren, sapokeri ta azpijanak ugari egin arren, bilboko kirolzale guztiak, bat batean, Ahtletigaz eta Ronnigaz dagoz. Ez dago berebilletan, bilbotar geienak jarri dabezan txartelak ikustea besterik.

Aupa Ronny! ta Gora Ronni! orrek asko esan nai dabe; erria ezin da beti artaldea lez eroan, izparringiak era batera idatzi arren, erriak bestera erantzun dautse ta geroago ta beroago Athletigaz bat eginda dago.

Beste alde batetik, kanpotik datozan langilleak, lelengo Athletiren jarraitzalleak egiten dira ta gero apurka, apurka gure erriagaz bat egiteko bidean jartzen dira. Au orrela beti jazo ez arren, sarri bai. Besterik ez balitz bere, gure ustez ongarria da gure oztikalari taldea, orregaitik geu bere Athletigaz, Oraa Jaunagaz eta Ronni Allen-egaz gagoz. Zorionak guztiori!

KIROL-ZALE

Bereiztasunak	**Uzkudun**	**Urtain**
Zertatik.	Aizkolaria	Arrijasotzaillea
Aukera	Irozoa	Emotaillea
Jatorriz.	Errexildarra	Zestuarra
Neurriak:		
Goibe.	1,78	1,79
Azta	96,— kgs.	90,— kgs.
Beso-zabal.	1,95	1,94
Bular-utsez.	1,18	1,17
Bular-betez.	1,34	1,34
Gerri	0,82	0,84
Beso	0,34	0,36
Eskumutur	0,26	0,24
Ukabil	0,33	0,32

ta biok Europa'ko txapeldun.

SALARI

IDAZTIAK

AZKUE'REN IZTEGI ANDIA

Barriz argitaldua ale bitan. Lengoak eta beste 5.000 itz Azkue jaunak arrezkero batuak.

HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE BIZCAYA

E. J. DE LABAYRU'K IDATZIA, Zortzi ataletan barriz argitaldua. Lengoak eta egilleak galdutzat eukazanak be ba'dakaz.

HISTORIA DE NAVARRA

Sei aletan au. Moret eta Aleson'ek idatzitako ANNALES DEL REYNO DE NAVARRA.

CANCIONERO POPULAR VASCO

Ale bitan. Azkue jaunaren bilduma ikusgarria, gizon orren lanagatik iñoiz galduko ez diran ainbat abesti eta doñu.

REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS

Ogetabost ale. 1.906'tik 1.936'gn. arte Euskel-jakintzan gorenengo ziranen lan garrantzitsuak.

DICCIONARIO HISTORICO GEOGRAFICO DEL PAIS VASCO

Ale bitan. 1.802'gn. urtean REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA'K argitaldua. Gaur erdi galduta dagozan izenekaz aberatsa.

NOTICIA DE LAS COSAS MEMORABLES DE GUIPUZCOA

Iru aletan argitaldua barriz au be, Gorozabel eta Etxegaray'k egiña.

COLECCION DE BOLSILLO DE LIBROS VASCOS

Ogetabost ale. Era guztietako irakurgayak.

UMEENTZAKO IPUIÑIK EDERRENAK? Ogetabost ale, margoz apaindutako ipuiñak.

Eskatu «La Gran Enciclopedia Vasca» ra. Apartado n.º 1.510 - BILBAO

ITSUMUSTUAN ETE?

Urtarrillaren 4'gnean, eta azterlari barri batek, bere izkuntza berezi orregaz, besteon idazlanak nastatzen asi baño lenago, nere lantxo bat agertu zan aldizkari baten. Bost illabete lenago esanda neukan ori, ez neban igarlari batek lez esan urrengoa asmatzen, orduko eta urrengo lau illabeteko iritxi zabalena orixe izan da. Ta ara, tamalez ba'da be, igarri egin neutsan. Ta ez diñot arrokeriz, beste aldera maiteago izango neban ba.

Ala uste zan baña orduan ta geroago, ta orrelaxe jazo be egin da: «Tory eskumar alderdia, urtebete barru, agintaritzan izateko bidean doa». Bertan, aurreratxoago beste au be ba-niñoan, engalandarrak Europa'ko seiregaz batzen ez diran oni alde berezi bat agertzen: «Ta onetatik Europa'k ez dau okerrik izan, beste aldera, irabazi aundiak lortu baño... Europa Osotua indartsuago dator onela; lenagotik sartu izan ba'litz, koipe gitxidun saldeana, zirin-zirin geratuko zan, alkartze lokarriak luzeegian indarbako, ta laterri bakoitzaren berekoikeriak nagusi ta etenlari».

Noan baña arira. Tory edo conservadore taldeak agintaritza lortu dau laterri aretan, eta onek ez dabenetik atzera egiterik, orrelaxe artu bear. Aztertu dagiguzan ba zergaitia ta ondorena.

Zergaitik sortu dan aldaketa au? Beste askoren artean eragingarri bi agertzen dira nabarmen, Jorrailleko «leibor» alderdiaren baikortasuna sortu baño lenagotik ebillazan eragingarriak eurak: «arrotzen sarrerak sortu dauan egoñeziña» (Powell), ta Europa'gaz bat egiteko «erriak bizkarreratu bearko leukezan estualdiak» (Daily Telegraph). Ta Powell'ek darabillan arazoa aztertzeko an bizi ta bertan ikusi egin bearra naitaezkoa danetik —gure errikoa aztertzeko be orrenbeste eskatuko genduke— ta Europa'ren goraberak urrago darabilguzala, auteskunde onen ondorenak zer eragin aundirik lekartson jakitea oba. Ta barriz esan bear: «ta aldatze onetatik, erbesterako artuemonetan alde aundirik ez ba'letor be, Europa'ko seiregaz bat egitea ez litzake bardiña izango».

Begira emen gaur sortu yakuzazan kezkak: Jaurlaritza barria Commonwealth eta Suez'tik andiko arazoetan gogorrago lotuko da, ta Europa'tik urrindu; Europa'rako ordaindu bear dan saria larregitzat emona dau, ta etxeko lantegien eta lugintzaren alde be gogor edo gogorregi jarriko da, ta onetatik sarreraren aurka agertzen diran europarreri aukera obeak eskuratu; Vietnam eta Indotxina zabalean ososoan sartzen ez ba'da be, Nixon'en alboan sutsuago joango da, ta au be ez da ibillaldi ori egiteko txartel ona.

Lerro oneik, auteskunde orrein zenbaketa osoa egin aurretik idatziak dodaz; ba-litzake azken orduan zerbait aldatua agertzea, ala ta be, 30'etik 40'ra inguruko geyagokoa lortuko ei-dau Heath'en alderdiak, ta bene-benetan, Europa'ko alkartzeak bide barriren bat izango dau, areik barik orretanbe.

Nere ustez, Wilson eta bereak ez dira itxu-itxuan amildegira joan, ba-ekien bai joko estua egola, baita, baña, urrengo amar illabeteko epean ez ebela, burruka gogor bat jokatzeko, aukera oberik izango. Gaur galdu ba'dabe be, ez da askogaitik izan; udazkenean ostera, galtze lotsagarria letorkeen eta burua jasotzeko neke luzeagoak; gaurkoagaz urrengorako indar barritzea erreza beiñik bein.

Ta ez daigun zearo aztu, ziñestu edo ez ziñestu, sarri entzun izan dautsegun au: «ta aldika aldatze onek onura aundiak dakarkioz erri oni; eskumarrak egindako legeegaz ezkerrak jaurri, ta gero, ezkerrak egindakoegaz eskumak agindu, baterako edo besterako keriak erdiratzen dirala». Ta orretarako gizonak benetan izan bear, etxean beintzat.

BEIZTEGI

IRAKURLEAREN TXOKOA

Zuzendari Jauna: Irakurri dozu, Saizarbitoriaren oraitzuko idaztia? Ez? Nik bai, izan dot kasketaldi ori.

Nik ez dakit zela norbaitzuek ausartuten dirian liburuak idazten, gramatikarik ikasi barik. Ez gramatikarik, ez ortografiarik. H-ri jagokon ortografia batez be. Saizarbitoria h-zale punterengoa izanik, berakpe ez daki noz ta zelan enpliau pitxi polit ori.

Neuk esango dotsut zelan egiten daben: *Ibai*, batzutan h'gaz ipinten dau; bestetzuetan h'barik.

Bardin *ur* be: batzuetan h'gaz, eta bestetzuetan h'barik.

Bardin, *ondatu:* bein h'gaz, eta beste bein h'barik.

Ogeitabost, erdian h'gaz; eta *berrogei* h'barik; eta beste batzuetan *hogei*, h'aurretik daroala.

Batean «gora ta *bahera*», eta bestean «buruz bera».

Batean *huntan*, eta bestean *oneraino*.

Batean *lehio*, eta bestean *leiho*.

Batean «*onena*, ixiltzea», eta bestean *honena*, ixilik egotea.

Batean «akordatzen *naiz*», eta bestean «ibiltzen ba *nahiz*».

Batean «neska *horren*», eta bestean «bai *orixe*».

Batean «ikusiko *hukek*», eta bestean «izanen uke».

Batean «ez daki, gustatzen zaion *ala* ez», eta bestean «ez dakiela, raroak direlako gelditzen diran mutil zar, *hala* mutilzar gelditzen direlako direla raroak».

Batean «ez *itzazu* gauzak horrela jarri», eta bestean «aurreratu *hitzak* bakantzak».

Batean «on», eta bestean «*hobe*».

Batean «*ator*», eta bestean «*hator*».

Orra or, amasei —zelan esan?— txirristada?, iñorantzi? Edozelan dala, frakasu itzel, eredu izan bear leuken liburu batean. Besteak iñoana: «Eurok bere ez jakin, nun eskegi pitxi polit ori, ta alan be osterantzekoei eskegi eragin gura».

Ortografia aldetik ori; liburuaren mamiñaren aldetik zer? Liburu dana abortuaren apologi bat baño ez dala, Euskaltzaindiak ez dakit zelan saritu leikezan olango ta orren antzeko «abortuak».

T. E. I.

Agur barriari agur:

Eskuetan darabilt AGUR barri au, eta asmo onenagaz ara emen nere iritxia, goralpenak bage, orretarikoak asko izango dozuez, obeto egitera beartu gura zaituet:

Benetalari larregikoa iruditu yat, balitzake jayo barriaren akatsa izatea, orra ba, serioegia aurkitu dot, azkartasun apur bat geyago bear leuke, biziagoa!

Irakurten oitu bakoei laguntzeko asmoan be ei-zatoze. Orretarako gai arin eta bizkorrak bear lirake sarri. Gure artean, kirolak eta izkirimiriak atsegiñez irakurten doguz.

Argazkiak be, geldiegiak, lotuak, estaticoak aukeratu dauskuzuez. Iribar bera geldian bage, bertan diñozuen »egoaleak bai leukazan» bere etzinkada baten obeto agertuko zan.

Ta azkenez, izenordezko askotxo, nork idatziak diran jakiteak irakurleak suspertzen daki.

Zelanbait lagundu zaudazelakoan, amaitu dagidan emen, neu be serioegi agertu ez nadin.

Zoriona!

BERMEO'TAR J. I.

ERRIETAKO BARRIAK

Galdakano

Danetik zerbait

AGUR irrintzi pozgarri bat legez, agur anaikor batekin argitu yaku aspaldiz egarri andiaz itxaroten gengozan euzkera txukuneko aldizkari au ta, beraz, bizkaitar guztiok eta bai bizkaitar eztiran euzkeltzale guztiak be beste agur maitekor batekin erantzun biarrian aurkitzen gara, baiña, ez itzezko agurrakin bakarrik, eginkizun zinduakin baiño. Eta, zeintzuk izan litzakez euzkaltzarik egokienak? gure ustez aldizkari au zabaldu euzkeldun guztien tartian beronen euzkera txukunan bitartez zaletu ta landuten alegindu gaitezan.

AGUR aldizkari onekin amaitu diralakuan gara euzkaldun askoren kezkak, batzuenak; ezin dabezala idazti, aldizkari ta beste idazlan asko irakurri Bizkai euzkalki ez diranetan idatzita aurkitzen diralako eta, beste batzuk euzkera mordollo itxuzirik ikusi nai eztabelako, zegaitik?, argitaldu barri dugun illeroko au euzkera argi ulerkor txukunian aurkitzen dalako, euzkera benetan maite daben guztiak gozatu daien. Orregaitik ba, irakurle maitia, gure agurrik zamurrenez erantzun daiogun AGUR'i.

* * *

Igande bi, egun atsegingarri bi igaro duguz erri-jakintza, folklore zaliak, euzko dantza, eresi, jolaz zein beste jakintza guztien zaliak garenok, Orrilla'n azkenengo igandian Eibar'en eta Bagilla'n leenengo igandian Durango'n ospatu ziran umetxueen euzkal jai bikañak dirala-ta. Leenengokoan, Eibar'en, ondo eralduta bera, txikitxuen dantza talderik asko batu zan bertako enperantza zabalian; ikusgarria zan ainbeste umetxu dantzatuten eta txistu jotzen ikustia.

Durango)n, besterik edo antzera izan zan Bagilla'n 7'gn. ospatu zana, antziñako Tabira'ko eleiza zaarran onduan. Euskalerri'rik geieneko dantzak dantzatu ebezan bertan Araba, Naparra, Gipuzko ta Bizkai'ko dantzaritxu bikaiñak; berrogei ta bat talde ta bazkunetako 1427 neska-mutikok, jakiña, euren dultzañeru ta txistulari talde ederren soñu otsian. A zan umetxu kutunaren berezitasuna ta geienak dantzatuteko ipinten eben zaletasuna! egiz, ain zan alaitsua bertan ikusten gengozan jai bikaiña, antziña umetxu izandako onei be dantzatuteko naiaz bizia emon lauskuen; istar sauritua gaitik izan ezpalitz... Gure euzko dantza kementsu garbiak ikusi ta, nor ezta alaitu ta biztuko? Gure zorionik maitekorrenak jai bikain orreik, bai Eibar'en eta Durango'n eraldu ta gertu dabean euskeltzale jatorrai.

* * *

Lerro oneik idatzi duguzaneko ainbat AGUR saltzen ikusi dugu gure erri ontan, leenengo zenbakia ondo artua izan dala euskeltzalian artian eta, berak kemenduten dausku eta poztuten gaitu aurrera jarraituteko zabalkundean. Ez daitela galdakoatar bat illeroko bikain au erosi barik!

BASA-JAUN

Eibar

Umien jayagaz beruaren giltzari eragin dautsela-ta, asi da eibartarren sakabanatzia. Onezkero, Sanmigelak arte ez gara alkar asko ikusiko. Ala ta be, gagozela gagozen lekuan, eibartarrok eibartar, ta ez deilla dana eguzki artzea izan, gure erriko gora-berak be goguan erabilli, batez be zelan indartu ikastolak, euskal jayak ta eibartartasuna.

Umien jai ori zoragarria izan dogu. Egualdia batetik, erriaren naya bestetik, bizi-pozez danok, baita orren «basarri usaiña» maite ez dabela diñoenak be. Kakalardo'ko zubipetik asi eta Maltza'koraño arte igari egitea al-izan ebenak, Eibar'ko biargintza sortu ebenen antzeko burdi arek, atzera umetu ebazan. Amantalak, auspo-labia, firifaria, zorroztarria, bei-perragille... Karo'ren asmakizunak biotzean ukutu eutsen Barrenkalian ziar ibilli izan ziraneri. Musatai'ko Patri, Arragueta'ko tunelpeko, Ubitxa edo Bilbozarreko edozein lantegi begien aurrian barriz.

Sasoya aurrera doyala-ta, danetik zeozer dakienentzat Zuluaga aundiarena izan da gorenengoa; biotzetik maite izaten dakienentzat, besteak be ainbestekoak, lengo langille zarrak, biarko aziak izango diran umeak be orrenbat. Ikastolak diñoskuena ez da txantxankeria.

Soraluze'n lagun zar bat galdu dogu, ara or Liño, ta ara or Benitxo, au Eibar'en, onen ondoren Loinaz abade jauna, gure artian ain ezaguna. Mundu onetako anaiarteko bizitza benetan maite eban, iñok maite izan ba'dau, ta orrek eraginda-edo, baita bere auzokuak be. Bizkai'ko menditartean ezagutu gendun. Batzuk alanbre meya lez estuak izaten gara: laster berotu, ariñago oztu. Jose Antonio patxadazko gizona gendun, danon lagun, berreun urte bizi izateko aiñakua. Ara baiña, batbatian joan jaku, ia onenean. Jaunak izango al-dau bere inguruan, Pagotxitik zear joan jakuzanen ondoan!

KUNBO

Usansolo

Tamalez, gure euzkera ederra erdi galduta egon da gure artean. Ez maite ez dogulako, geure alperkeriagaitik baño. Baditeke erru osoa ez gurea izatea, ainbat gauza jazo eta alkartu diralako euzkeraren aurka.

Lenengo, ta beste gauza guztien ganetik, ez dauskuelako aoz besterik erakutsi (bai gurasoak ez ebelako jakin, bai zabalkunderik egiten ez zalako). Zelako aberastasuna daben erri batentzat bere izkuntzea ondo ezagututzea, ta batez be ain zarra izan ezkero.

Bigarren, guda zala ta ez zala, euzkeraz egitea politikatzat artu zan askoren artean.

Irugarren, euskerea erakutsiaz aurtxoari, beste jakingarri batzuentzat kaltegarri baño ez dala izango asmatu eben batek baño geyagok.

Len esan dodan lez, oneik eta beste gauza batzuk bat eginda, euren zabalkundez, izkuntz maitagarri au, ito edo erdi galduta geratu zan Usansolo'n eta Labeaga'ko auzounean.

Baña beti dago norbait —Jaungoikoa lagun— bere biotzean min artuta, gauza oneik ikusirik, asmo eder bat artzen dauana. Eta orain urte asko ez dala, asi gara ikusten, zelan gure gasteen artean, euzkerea jakitea ez dala lotsagarri, goragarri baño.

Bai eta, ikusi dogu, txitak olloaren atzetik joaten diran lez, ainbat gaste euren andereñoagaz etxebatetik bestera, ikastolarik ez eukielako, gaur emen eta biar an, euzkeraz zintzo ikasten. Lenengo arria ipiñita egoan, baña jarraitzea ez da erreza.

Orregaitik onen ondoren, gaste eta ain gaste ez dan talde bat alkartu zan, beste gogo aundi bategaz. Euzkerazko mesea goratu, eta alegin guztiak egiñaz, euzkaldun diraunentzat euren arimako zustrairarte sinismen barri bat sortu. Ta sinismena ez bada, bai bide barri bat a ulertzeko euzkeraren bitartez.

Bide onen lenengo mailla, danok esku-sartu edo parte izatea mesa osoan, iñor aldendu barik. Urrengo, abesti barriak ikasi eta Jaungoikoari dei egin, gaurko itz, eskari bai eta gaurko eztabaidakaz be. Ez da au alperriko bidea izan. Zenbat lagun, adizkide onak, bide onetatik mesea ezaguturik, ainbat urte eleizatik aldenduta egon ondoren, etorri dira barriro poz-pozik igande bat galdu barik.

Amaitzera noa, aspertu ez zaidezen. Urrengoan, leku apurtxobat aurkitzen badot izparringi onetan, jarraituko dot, gure auzo onen goraberakaz.

JULENE L.

Bermeo

Arrantzaleak asi dakuz Dakar eta Lebante aldera joaten. Antxobiek utsa emon ba dau be ez da aurrera gogor egiteko adorerik falta. Orretan ondo ikasiak gara Bermion. Utsak eta beteak artzen badakigu eta eskarrak. Orain auxe bear dogu: atunek ondo emotie; olan zorrak ordaindu ta bizi.

Bagillaren 21 ean, Eleizalde alkartekoak lagun guztien batzarra egingo dau. Ameza dogu, Ikastola andi bat egiteko. Errian dogun arazorik gogorrena Jakintzarik-eza dogu euskaldunok. Bermeotarrok ez dogu landu bakoak izan nai. Batzar orretan zer ebatzi dogun urrengoan esango dautsuet.

Bagillaren 30 ean, Larrinaga tar Eusebio Txistulariari, omenaldi bat egin gurean diardue Sukarri taldekoak. Asmo ederra, da ta erritar guztiak, ontzat artuko dabena. Gizon ona ta maitagarria gure Eusebio. Amaikatxu biotz poztu dauz bere denporan.

Bigarren Agur urten orduko, ezkondu ta eskontzaozteko ibillaldian izango dira, Uriarte tar Marisa ta Gerrikagoitia tar Jose Luis. Mendi-ko Karmen'en Ezkontza izango da 21 ean. Zorionak zeuen sendiari eta zeuori. Egun onak igaro.

TORRONTERU'TIK

Arratia

Galeperra - pospoliña

Idazpuru au irakurriko dauan eizariak begiak zabal-zabal eginik, baliteke galeper-lorratzari jarraitzea abikada txoria aurkituko daualakoan, olako ametsik ez egin baiña, eizari irakurle.

Idazpuruaren zerak eta aldizkari onek badabe alkarren antz eta irudi; ta ona emen zelan eta zergaitia:

Orrillaren 29 grn. goizeko zortziratan arrautzatxo bat besterik ezan, ezer gitxi. Amarrak aldera «pospolin, pospolin» abestu eban euskaldunai deika jayo zala adieraziz. Arratsaldean arrautz-oskola ipurdian eta plageak suturik Arratia zearkatuz oiau Araba'rantz begiraturik, gorantzi, txalo ta agur gozoak, legezko zan lez, entzuten ebazala. Arantzazu'n gaua emon gaztediagaz, eta igande goizean goiz Areatzan izan zan. Orain ezkero barriz, bai Gipukoa'n eta alan Naparroa'n-Bizkaia'n zetan esanik ez - euskaldun jatorren eskuetatik garia jaten ariko da.

Sasi-naski

Amaikatxo ikusi izan doguz gogaituta (aldi ontako gaxoak jota) belarriak makur, gogoa illundurik eta naskatuta sasi-naskikeri saskelak menperatuak.

Asko gara geure zoritxar gaiztorako irakurten ezer gitxi ta idazten teutik ikasi ezgendunok.

Erreztasuna nai izan dogu, onen billa jokatu dogu ta emen dogu, eta etxekoaren gozo ta zaletasunagaz jabetzen garenean, betos giputz anaien idazlanak, naparrenak, iparaldekoenak. Goitik beerako aginpide gogorraren etsai gara; beraz, itxi erriaren esku beetik gorako aukeratzea egiten, euskera bateraturako bidea artzen.

Oarra

Zuri, eizari; bai-ta zuri, neskako naiz mutiko: galeper zoli onen abestia entzungo dozunean, ez joan bera iltera, arrautzak ostutera ta abia apurtzera. Emon egiozu garia loditu daiten, izan esker oneko geure-geurea da-ta, lagun bizi daiten.

Irakurle ta arpidedun

Aldizkarionen lenen irakurleak Arratia'n, M.ª Tere Pujana (Dima'koa), M.ª Angeles Petralanda ta M.ª Bego Arandia (Igorre'koak) izan dira. Lenengo biak gogotsu irakurten eben artean Fasio soñuren alaba alper samar agertzen zan.

Arpidedunak Iruarrizaga'tar M. ta Sopelana'tar M.

AGUR'en agurrak guztioi.

Izpar zaar bat

Arteaga'ko gaztediak eratuta euskal-jai polita izan zan igarotako azken urtean (Arteaga'n).

Inguruko errietan iragarkaiak zabaldu ebezan, eta elizpeko orman illunabarrean jarria izan zanak bizitza laburra izan eban. Ete dakizue nork kendu eban? Nik, bai. Mokorralako erdi-atso bat zan. Euskerari amurrua dautso ta erderaz ikasi barik ilgo da. Au bai au azaburua!

A. LANDAJUELA

Zarautz

Eskerrik asko gure trabena ontara AGUR ori biali digunari. Jayoberria agurtzen eta ongietorria ematen, or dijoazkizute gure arpidetze - txartela. Emen, gure erri onetan maiteak ditugun bi bizkaitar bizilagun gurekin daudela irakurri degu ta, gure ezpaiñetatik beren euskera bizkorra entzutean, begiak dirdir jarri zaizkie.

Emen gabiltza udara sarrerako gure jayak antolatzen; Pelai donearenak lenbizi, geroz indartsuago agertzen direla. Ortarako, Tolosa, Arrasate ta Eibar'tarrak beyen jayetan itxasaldera iges egiten dutela, gu sayatu bear Sanjuanak luzatzen. Ongietorriak zuek ere legorrekoak, Deba, Onadarru ta Lekeitio'ra dijoaztenei ere orrelako jayak opa dizkiegu.

Ta, beroak eragin ote digun ba!, begira zer entzun degun; gaizki ulertu ba degu argituko al gaituzte: Gure Basarri aundiari euskera erakutsi bear omen dio arroxkoren batek! Ori bai degula, euskera modernuan esanda: desfachateza.

EXTEBAN

Atxondo - Arrazola

13 URTEKO KILIKILITAR NESKATO BATEN IDAZKIA

Gure errian ba'dago txoko polit bat,

Zeru beraren zati bat

Bizkai guztiko lorea

Eta Anboto, aitzezko mendia

Neguan zuri-zuria

Uda-barrian lora apaingarriz jantzirik.

Orra or Anboto zoragarria

Alai ta bakez beterik.

* * *

KILI-KILI, umeen aldizkaria oso begiko jaku, ta itxaropen aundia dogu beragan. Zortzi mila umetxo darabiltz bere magalpean, zazpi urtetik amalaura bitartekoak. Aldizkari orrek egin dauan miraria auxe da: Ume bakotxari, euskal-ikastolea, bere etxera eroatea.

Orreri eskerrak, ortxe dabiltz zortzi mila ume buruzbelarri, egunero euskeraz idazten. Ikustekoak izaten dira, Kili-Kili mutikoak jasoten dituan idazki-besakadak.

Guk, itxaropenez beterik, agur egiten dautsogu zuzendari azkarrari.

EZKON-BARRI

Sopelana

Gure erria oso erdaldundute daukogu. Ez da gaurko gaitza; ez benetan. Galdu gendunaz jabetzeko asmoz, ikastola bat jarri gendun, eta gaur oso pozik ikusten dogu egin dan aurrerakada.

Umeen eziketa egiñaz batera, gurasoena be bearrezkoa dala ta berbaldi batzuk izaten doguz lantzean bein.

Lengo astean izan doguz olako iru, abade gazte batek emonda. Erderaz izan dira, guraso askok ez daki euskera ta. Itzaldi gaiak, oneik izan dira: gizona gizarterako; Euskalerria erri egiten dabenak; euskaldunok oraiñarte euskera alde egin doguna.

Itzaldi mamitsuak izan doguz, eta ondoren onak ekarteko izango dira.

Udazaleak, asiko dira lazter etorten. Euskera dakian asko ez da etorko, baiña ba'letor, ez gaizala aiztu.

MAUAGORRI

AITA MOKOROA-RI ITAUNKETA

Nungoa zaitugu? - Noiz jaioa? - Ikasketak nun? - Euskera nun landu? - Nor izan zendun maisu orretan? - Euskeraz-gaiñera, zure ikaszaletasun andienak. Gudan eta ondoren nundik ibillia? Noiz Bilboratu?

—Tolosarra naiz, orain irurogei ta bederatzi urte amak mundura ekarria.

Garai artan, oso soiñu gutxi ateratzen zuan erderak Tolosako kaleetan; txintik ere ez gure etxean. Esan bearrik al dago beraz zein izan dan neretzat beste eskola guztien gaiñeko euskal-eskola?

Aita berriz —1897-gn urteko Euskal-Festetan «*Damuba garaiz*»-ekin lenengo saria irabazia— Bilbo zaarrean Azkue apaizarekin iru urte egiña gendun ezkondu-aurretik, Azkuek berak *Euskalzale*-ren lantegira deituta. Ortaz ere ez al degu biderik asko aren semealabok, gure izkuntzari beti erakutsi diogun griña «abeak erantsia» degula esateko? Gure etxekuok, bear esturen batek eragotzi ezean, euskera utsa ibilli izan degu elkarrekin, edozein arazotarako, aoz naiz lumaz. Beti! Bederatzi-amar urte nitueneko kartak ba ziran, Goierritik nik egiñak —euskeraz—, gure etxeko apaletan jasoak, oraindik-orain.

Jainkoak ala naita, eskolapioen soiñeko beltza jazteko gogoa egin zitzaidan, koxkortzen asi nintzaneko. Ori dala bide, apaizetako ta maisutzako ikasketak Aragoien eta Naparroan egin bear izan nituen. Etxetik irteeran, *Lardizabal-en Testamentu zar ta berriko Kondaira* eman zidan aitak, nere euskera eldugabeari bizirik irauten laguntzeko. Geroztik nerekin det; eta ez naiz lotsa, gaur ere nere maiteenetako liburua dedala esaten.

Meza berria eman orduko, Txilerako agindua. Arrezkeroko urterik geienetan, eskolako mutillai frantzes-puxka bat erakustea izan da nere egitekoa, apaiz-lanakin batera. Txilen bertan leen, eta emen Bilbon orain, joan daneko amabost urte ontan.

Frantzesarekin naaste, beste zerbait geixeago ere erantzsiko zitzaidan, urteen buruan. Izkuntza zaar eta berrietarako, beti izan det alako joera bat. Apaiz bezela berriz, etzait iruditzen egon luzetxorik egin dedanik nere bideetan, atzera begira.—Baiña, ortik gora, aparteko estudio nabarmenik ez: egunean-eguneko eginkizunari erantzuteko bear ziran argibideak nundik edo andik alegiña sortu...

Euskerari berari —euskeraz idazteari— naiko nion-beste toki opatzen eztit utzi zoriak, edo eztet beintzat asmatu aal izan. Saio apurren batzuk tarteetan («zokotik argi», esan oi dan bezela): aspaldi bateko *Argia*-n eta *Euskal-Esnalea*-n, Aita Intza gizon bedeinkatuaren *Zeruko Argia*-n... eta eztakit beste nun.—Aipatzea merezi duen gauzarik ez beiñipein: gaztetako pekatuak maizenik: kolkoan gordeta eukitzeko obeak.



Amets polit batek bai, kilikatu nindun, *Genio y Lengua*-ri buruematen ari nintzala. Baiña beste askoren amets ederrakin batean, nere-ura ere gerrateko ondamendian galdu zan...; eta, ametsak amets, erbesteko bidea artu bear izan nuan berriro. Frantzira lenbizi, lau urteko, ta Txile-ra gero, bigarren aldiz. Erbestetik erabat ekarri nindutenean..., etzan geiago ametsetako girorik gure euskal-errietan. Orain ogei urteko kontuakin ari naiz.

Ordutik ona, gure ibai kirastuak egin dute bide..., eta bai garretaondoko aziak ere leengo sail garbietan. Itsu ta gor eztagonak, nik esan gabe ere ba daki, ill-edo-biziko esturan daukagula gure *euskaldun-izatea bera...*, eta au esatea eztala berriketa. Iñoiz badata oraintxe dauka beraz, begia ernerik pauso bakoitza eman-bearra, *euskaldunizate* orri *albait eusten*, eta *euskera bizirik zaintzen*, saiatu nai duenak. Begia ernerik eta biotza garbirik, zentzuz eta gizabidez. Nik ala esango nuke.

* * *

Euskal-lan garrantzitsu baten murgildua ei-zaitugu. Lan orren barri emoiguzu.

Berria zabaltzen ari da, izan ere. Batetik eta bestetik etorri zaizkit lan au zer dan galdezka, ta or eman nizkien *Pueblo*-ri ta *Diario Vasco*-ri nere garbitasunak, eman aal zitezkenak. Zu zatoz orain, euskerazko aldizkari jaioberriaren izenean, eta nola eztizut pozez erantzungo?... Sarrerako itza beintzat, eskerrak emateko izan dedilla: AGUR-eri zure bitartez, eta nere lan onen alde lenbiziko otsa atera zuen bilbotar gazteari. Bere burutik itzegin zuan adiskide onek, iñoren eragiñik gabe; bidezko da beraz nik orain agirian aitortzea, berari zorko zaiola aurre-aurrenik, iñoiz argitara-bidean jartzen baldin bada nere esku-arteko lan auxe.

«ORTIK ETA EMENDIK» du bein-beiñeko izena, etorkizun dagoen liburuak, izen egokiagoren bat billatzen zaion arte. Garbi adirazten dizu beraz izenak, *eztala nerea* nere lan onen *gaia:* «ortik eta emendik» bildua baizik. Eztet nik or, zegoen tokitik gaia jasotzea eta errez billatzeko eran antolatzea beste lanik egin. Gai ori, gure erriko jenderik jatorrenaren buruetan sen berezi batek sorrarazia da. Nundik jasoa bera? Gure euskal-erri guztietako euskaldun kutsatu-gabearen jardunetik, bertsolarien kantetatik, leengo ta oraiñagoko idazle errikoeinetatik, antziñako liburuetatik.—Ortxe agertzen oi da, ispillu garbi batean bezela, gure Erriaren berezko arpegia; eta arpegi orixe nai izaten nizun betidanik aurrean euki, nere euskalduntasunaz oroitzearren mundu ontako joanetorri guztietan: ortarakoxe eman baitzigun Jaunak, nere ustez, *nor-geure erriko ume* izatea, —guri ta beste guztieri.

Ez nintzaizun beraz argitaratzeko asmoz asi, esakera oek biltzen: neronen euskera jazteko ustean baizik, iñoiz erriaren onetan zerbait esateko edo egiteko gaiean gertatzen banintzan, nere burua gauzago izan zedin.

Laster asi sitzaizkidan adiskide on batzuk arrenka, esakera ontxoenakin bederen liburu bat o satu nezala. Baiña ez ninduten orain arte beren esanetara makurtzen: lan gogorra baitzuan fitxak edo txarteltxoak bear bezela moldatzeak eta sail-banatzeak; eta gogorra baiño ere gogorragoa... —*eziña*—, bestenaz ere lanpean bizi izan dan langille bakarrarentzat.

Zenbat egun, edo orduko lana?

Berrogei ta geiago urtean, tarteka ta artu-utzika jarraitutako lana... Eztakit kontua ateratzen. Eun millatik aixa gorago igoak, kuadernotan jasota dauzkadan esakerak. Beste egiteko gabe ortan ari aal liteken batek zenbat denbora bearko luke? Lagun bik zenbat? Amar lagunek?

Entzun dogunez, irarkolarako eran laster?

Laguntza eskeintzen etorri zaizkit, leenaz gain, andik eta emendik; dirulaguntza eskeintzen ere bai. Egun batetik besterako kontua ezta izango. Nere Ordenako nagusiak erabaki bear dutena ere, ikuskizun dago.—«*Danborra jotzen asi giñuan... eta orain dantzatu egin bear, mutillak!...*» —esaten omen zuan karlistetako Dorrontsoro jeneralak, irugarren gerra asi zutenean. Eztet uste ni naizenik emen danborra jotzen asia; baiña nolanai dala, nik ez ta beste norbaitek bearko du jo siñalea, jendea dantzan asiko bada.

Ikastaroko garai onetan, Mokoroa Aita benetan lanpetuta daukagu, eta urrengo zenbakirako laga doguz ondorengo galderen erantzunak. Ara emen galdera orreitako batzuk:

Zure ustez, zer da batasuna, euskerari ta Euskal-erriari buruz bear gendukena? — Ortografi, idazkera barritu gurean diarduen lana, zelako begiz ikusten? — Sortu dan bitasun giro onetan, norantz? Zure lana H'gaz ala gabe? Euskera batua ta euskalkiak alkarregaz iraiterik bai al dabe? — Garbizalekeria ta mordollozalekeria. Zein da erdiko bidea? — Euskal idaztirik onenak? — «Agur» aldizkari au ataratzea begiko al iatzu? — Arantzazun esanak ezagutzen ba dituzi, aintzat artu bearrekoak al dura? — Gure erriari ezarri nai yakon au, zer deritxazu? — Liturji batasunari buruz esango zenduke zerbait? — Idazle gazteoi zer bide emongo zeuskigu? — Gasteen ezitzalle zaitugu, zer gareala uste dozu? — Euskeraren etorkizunari buruz, Baikor?...

GARITAONANDIA'TAR GOTZON

IRAKURGAI ERREZ POLITAK, I ETA II . . . . . **10 Pta.**

Euskera errezean eta iztegi laburrez idatziak, gure Izkuntza ikasten diarduenak, irakurgai polit eta egokien bidez, ikasi dabena, alkarrizketan erabilli dagien asmoaz, liburu onek argiratu doguz.

IKASTEKO . . . . . **75 Pta.**

Ikastolentzat egindako idaztia; «gauzen ikaskai» sorta ederra daukana.

ALKARTU DANOK . . . . . **15 Pta.**

Sakel-idaztia, Mezatako otoiakaz eta Eleiza-Abesti sail ederra daukana.
Bigarren argitaldiz, laster agertzeko dogu idaztitxu au, Meza Deuna'ren azkenengo aldakuntzakaz.

NORA ZOAZ? . . . . . **75 Pta.**

Aita Goikoetxea'tar Iñaki, J. L.'k idatzia. Bizkai Gramatika, errez eta atsegiñez ikastekoa, margo ederrakaz argitaratua («Euskerazaleak», Bizkai Erasketxea'ren babesean antolatu eban Sariketea irabasi ebana).

GIZA-SOIÑA . . . . . **100 Pta.**

Idazti onen gaia soiña edo gorputza da. Ba daukaz iduri egokiak, ederto margotuak.

Liburutegientzat salneurri onek danak 25 o/o beeratzen doguz Ikastolak, baldintza bereziak lortuko dabez gugandik.

Eskatu Euskeratzaleak Bazkunera, Colón de Larreategui, 14 (Bilbao-1)

AGUR

1
1-68
1970-1972

ILLEROKOA
3 ZENBAKIA

1970 - GARILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ERABAKI NAGUSIA

«HERRIAK», «GOIZ-ARGIK», «ZERUKO ARGIAK», «AGUR»ek, «KARMEL»ek, «KILI-KILIK», «LOYOLA IRRATIAK», «LA VOZ DE GUIPUZKOA»n irrat-saioak egiten dituenak, artzen dauen erabaki nagusia:

"Euskeraren batasuna egiten astera goaz danok alkarrekin.

Zertan egin batasuna eta nolako abiaduran eta abar, erriak erakutsiko dausku ta jarriko neurria.

Errian aitatzean, au esan nai da: Ikasten jardun gabe euskera dakin erria.

Erri ori eskolatuz eta orren eskutik eta beraren pausoan abiatzen gara batasunera bidean.

Bide ortan emon nai litzaken pauso guztia, ezagutuko dau aldez aurretik erriak eta jakingo dau zergatik emoten dan eta zergatik ala; eta tartea ere emongo jako, bere iritziak agertzeko.

Betor euskeraren batasuna eta bekar biotzen alkartasuna.

ORRA ERABAKI NAGUSIA.

Jakintza ta eskolatzea

Bildur barik autortu daikegu, Euskal Erriaren arazo astunetariko bat: eskolatu bearra.

Jakintza ta eskolatzea ez dira gauza bera. Ez, ori ez. Onexegaitik ...ste dogu gure erria jakintsua izan ta b... zoritxarrez gitxi eskolatua dala. E... aurrerte, jakintza ta eskolatze ori, banan-billiak ba'dira be, ez dogu orain olan aurrera egiterik.

Izan, badira gurean amaikatxu andra ta gizon, eskolagabeak izan ta be «Euskal Erriaren jakintza» euren muiñetaraiño sartua daroenak. Nok ez dauz ezagun? Eurak doguz iturri garden, euzko gogoa zurrutatzeko. Gizaldietan agoz-ago itz utsez azaltzen zan jakintza jator ori, idaztietan mamitua dogu gaur.

Gure Erriko gizon eskolatuak, Moises-ek beste aldi baten Israel zaarrean egindakoa, gurean barritu dauskue. Gogoan dodaz: Azkue, Orixe, Barandiaran, Oteiza...

Gure Goraldia, Abando-ko Arranoak bultzatu ebaneko, azaldu zan lan au egin bearra. Alde batetik, agoz-ago ebillana mamitu bearra, bestetik erria eskolatutzea. Egia esan, larriago lenengoa, bigarren au baiño. Eskolatze kontu au, gaur be egin daitekeana da; bestea barriz, egiña ezpalitz, gaur beranduegi izango litzakean.

Goraldi arek izan dau, beerakada ta ordu larritan, altzo bete. Azkenengotik ez zan uste urtetzerik. Baiña, olerkariarena: «...erri bat iltzen ez duk ain errez».

Gure Errian sortu zan eskolatze asmoa, auzoetako ikastolekaz asia, sakon eta zabal artu dogu gaztedi barriak. Itxaropenez beteriko egunak ikusten doguz. Urrutiko baserrietaraño eldu da otsa. Nor ez da poztuko, gure Ikastetxe Nagusiaren inguruan, ainbeste neska ta mutil euskeraz diarduela entzunaz? Askotan izan naz euren tartean.

Euren arterako izango doguz, gure ikastola barrietan doguzan neska mutillak.

Erdaldun izparringiak autortu bear izan dabe oraintsu, Bizkaia dala emen inguruetan eskolabako gitxien dauana. Au be arrobide dogu.

Bilbo-ko Kili-Kilin lana, millaka etxeetara eldu ta amaika euskal sute ikastola biurtu da. Itxaropen asko doguz bai.

Baiña alan da guzti be arduretan nago. Eskolatzen goazan neurri orretan ete doa gure Erria jakintzan aurrera?


Kultura itza aipatu ta sare-zabaltzailleak izan daitekez. Euskera, izkera badala; euskeraz barik edozein izkuntzetan egin geinkela lan; gero be ikasko dogula. Azkue-n lana, ez ei-da bizia. Orixe-na, baserrikoa da. Barandiaran, atzera begira bizi dana... Oteiza?

Ez daigun onartu, gure izar andien izen ona galtzera datorranik. Geure atzea ez ukatu. Bein mamitua or dogu. Orain: «ats emaiogun ontan iraun dezan».

«Euskal Ikastetxe Nagusia sortuko da noizbait... etor liteke Jaungoikoa lagun, egingo bagendu euskaldunok egin genezakeana» (Zaitegik idatzia).

Ikastetxe Nagusi ori, egin gura dogu, ez erbesteko ur pozoitsuetan, geure Jakintza gardenean bai. Etxeratu daigun euskaldundu daiteken ona dana.

Ona emen bide bat: Jakintza erriari, geurea, eskolatzeaz batera.



KILI-KILI'TARRAK XABIER'EN

KILI - KILI

Urtero lez aurten be, Kili-Kili ikastaroko sarituak lau eguneko ibillaldi eder bat egin dabe. Eun eta berrogetamar lagunetik gora joan dira Naparroa'ko lurraldeak zear, ta beti lez, osaba Kili-Kili'ren ondoan, aztu-eziñeko egun zoragarriak izan.

Zer? Ez dakizula zer dan Kili-Kili eta osaba Kili-Kili'k dagiana? Millaka neska-mutil gaztetxori euskeraz eragin, euskerea garbitu ta indartu, euskal idazle gazteak sortu.

Ze, nungo kolejiotan? Etxean gizon, euren etxeetan, sukondoan euren aita-amen begi pean, eta osaba Kili-Kili eta bere lagunen ardurapean.


Oi, itsuori! Zelan, diñozu? Eskatu egiozu berari eta zuzenean jakingo dozu. Idatzi: KILI-KILI, Colón de Larreategui, 14-2.º da. Bilbao, 1. Zure aurrak bere laguntzaren bearrean daukazuz, eta bere be zurearen zain. Ara baña zelan dan, labur-labur:

Bere izena artu ondoren Bilbao'n, gaztetxoak etxean artuko dauz langaiak, or, bere jakituria eta asmena lagun dabela, erantzunak beteko dauz galdereri jarrain, idatzi eta irakurri, baita margodun marrazki politak egiten ikasi, begitik be, belarritik lez izkuntzea edertu eta ikasten da-ta.

Zatoz ba Kili-kili'tarren artera, eta lagun jatorrak aurkituko dozuz.

Eta zuk, aspaldiko Kili-kili'tar orrek, bialdu egizuz «AGUR» onetara zeure idaz-lantxoak, or zure errian, zure eleizan, zure etxean entzuen eta ikusi daikezuzan gauza politen barriak. Nok ez dau nebaaren jaunartzea, edo ikastolako jairen bat, edo lagun artean izan dozuen pelota jokoa. Asi ba idazten eta bota onuntz sarri ta ugari, emen agertuko doguz, ta ugari ba'zaree, ogei urtetik gorako zarrenak baztartuko doguz.

AGUR



LAU KILI-KILI'TAR NESKATO, OSABA KILI-KILI'REN BELBILLA ZAINTZEN

BIZKAIA

Bizkaia ederra
zoramenetan zakusdaz,
Nire oin eta gorputza,
nire adimen eta maitasuna
euskal-erriko mendian dagoz
ordu onetan
Jataren gaiñean.

Lenen, lenen, emen,
Bizkaiko gaillurrak
arkaitzen gogortasunean
ernai dagoz
gure bizia zaintzen;
euskal gogoa
ortxe dago sartuta
gure gaillurren arteko
zelai babesetan.

Lengo erria ernai,
gaurko bizitza barria
gogo zarrean ernemiñetan
dakust, bizi,
itxasoko arrantzalietan.

Nekea,
bearra,
sendia,
bizia,
geure eder guztia
beragaz ditu mariñel ausartiak
urrutiko itxasoan.

Besoak lanera,
sareak itxasora
ta arraiñak ontzira,
biotza barriz, oso osorik,
euskalerrira begira
geure itxas ertzeko errira.

«Boga boga mariñela»
ba-dator izontzia,
arraiñez betia
euskalerriko kaiera.

Biotza zabal,
arpegia alai,
euskal gizona
kantari dator
itxasoak zear.

PAULIN

EUSKEREA

ALKAR

Erderaz erreziproko izenez ezagutzen diran esaldiak, gaur, sarritan txarto esaten dabez gazteak, transitibo dana intransitiboz eta askotan erreziproko izate ori emoten dautsan ALKAR berba barik. Noz nai olakoak entzuten dira:

«Azkanengoz Paris'en ikusi giñan».
«Noz ezagutu ziñen?»
«Alkar maite izan zaitezte».

Goiko esaldi oneik txarto dagozala jakiteko lenengoa aztertzea naikoa da. Esaldi ori zati bitan banandu geinke:

Azkanengoz Paris'en ikusi zindudan.
Azkanengoz Paris'en ikusi ninduzun.

Ikusten danez esaldi biak transitiboz dagoz; beraz biak batera besarkatzen dabezan esaldia be transitibo eran izan bear da.

Azkanengoz Paris'en alkar ikusi genduan.

Ara ondoren, batzuk entzundakoak eta beste batzuk aldizkarietan eta aurkitutako esaldi okerrak (gazte-gazte ez diranak idatzita be bai) esakera jatorra alboan dabela:

TXARTO

Noz ezagutu ziñen?
Alkar maite izan zaitezte nik izan zaituedan lez.
Anaiak lez alkar agurtu gera.
Arratsaldean nun ikusiko gara?
...da gaur egunean bakoitza bere izen eta abizenez alkar ezagutzen gera.

(bertso baten amaiera)
danok anaiak zerate
eta alkar maitatu zaitezte.
(Beste bertso baten amaiera)
danok sendi bat geran ezkero
alkar maitatu gaitean.

Alkar ezagutu ziran Elsa ta Pierre eta maitasun eziña batek jo ebazan.

J. E. E.'ri neure agurra. Ezagutzen ete gara? Arpegiz ez bada be geure asteroko onen bitartez-edo ezagutzen garala dirudi.

Printzea (luze ta illegorria, begi urdiñak, gorputz gizandi bat eta espirituz urduria) lehenengotik Manuel de los Herreros'ekin topa zan.

ONDO

Noz alkar ezagutu zenduen?
Alkar maite izan eizue nik maite izan zaituedan lez.
Anaiak lez alkar agurtu dogu.
Arratsaldean nun alkar ikusiko dogu?
...da gaur egunean bakoitza bere izen eta abizenez alkar ezagutzen degu.

danok anaiak zerate
eta alkar maitatu ezazute.

danok sendi bat geran ezkero
alkar maitatu dezagun.

Alkar ezagutu eben Elsa ta Pierre'k eta maitasun eziñak jo ebazan.

J. E. E.'ri neure agurra. Alkar ezagutzen ete dogu? Arpegiz ez bada be geure asteroko onen bitartez-edo alkar ezagutzen dogula dirudi.

(Esaldiaren esanaia erreziprokoa bada ola): Printzea'k (luze ta...) eta Manuel de los Herreros'ek leenengotik alkar topa zuten.

(Esaldia erreziprokoa ez bada beste onetara): Printzea'k (luze ta...) Manuel de los Herreros topa zuan.

* * *

Auzi onetako legea auxe da: Aditza transitiboa danean (intransitiboa be izan leiteke erreziprokoa) aditz laguntzaillea be transitiboa, ta ALKAR berbea osagaillu ez zuzenekoa (complemento indirecto) danean kasuari dagokiozan atzizkiak berari erantsi bearko jakoz. Ara ondoren zarrai entzunda ikasi doguzan onetariko esaldi batzuk:

Pernando (amezketarra) ta emaztea alkar iltzera joan dira.
Gizon birek astokeriak alkarrei esan dautseez.
Nik eta neure andregaiak astero alkarreri idazten dautsagu.
Alkarregaz ezin joan gaitekez.
Miren eta Joseba'k ez dabe alkat maite.

KAMIÑAZPI

DEYARI ERANTZUNA

Lenengo: «AGUR»-eri, ongi etorria aberri bizitzara.

Aldizkingi barri onen sortitza poztutekoa da euskaldunontzako. Eta Bizkaitarra nazen aldetik, Zorionak biotz zintzotasunez «Agur»-en jayotza aita-amari.

Idazle barri eta zar asko dagoz Gernikako zugatzaren magalpean bizi diranak. Zerbait egin gurean batzuk, eta beste asko, lotsaz eta ikaraz euskeraz idazteko. Eta danok olan jokatuten ba' dogu umezurtza lez geratuko da gure Ama elea.

Euskeraz oituta dagonari dei pozkor ta maitekor bat egin dautso «AGUR»-ek. Eta dei oneri erantsuna emotea biarrezkoa dala uste dot.

Euskerea, ondikarren, esango geunke, ez dagoala il zorian, baña bai gexo txarrak jota bere gogoa ta soña. Seme on eta zintzoari laguntza eskatuten dautso bere osasun eta bizitza gaizkatuteko osaki biarrezkoak eruateko.

Seme biotzdunak izadi lurretan jorratutako lora, bedar, landara eta sustrayetan eratutako osaki gozoak gura dautsoez opatu. Eta beste semé batzuk barriz, aspaldiko egunetan, kimia bidez egindako osaki garrazkilladuna gura dautsoe edaten emon (bere okotzeko bizar zuriari azgureka osagilleak diño: etxakiat, ba, Atsotxu maite onen bizitza luzerorakoa izango dan olako osaki ez-bardiñakaz).

Neure atxitxe zarrak bildur eta ikaraz, baten baño geyagotan esaten dau, len ez egoala gaurko zertzeladarik euskeraz itz eta idazteko. Iñok, ez ebala iñor iraunduten ele arazoagaitik. Eta batak eta besteak ondo alegínduten zirala euskera erreztu, polistu eta goi-mallara eruateko.

Eundez idazle sakon, argi eta langilleak izan dira eta dira Euskal-Errian. Euren artean makiña bat olerki eder eta idazlan zoragarriak idatzi dabez «liburuak» diñoskunatik. Baita euskerea gaizkatuteko be biderik asko izentau. Euron izenak urrezko izkiz ezarrita agertu biar litzakez, Gernika'ko Batzar Etxean gaurko gazte-zaarraren eredu edo «ejemplo»-tzat. Eta olan eurari esker ona agertu.

Ama Elea ez da Bizkaitarrena bakarrik: Bai dira beste sei anai arreba; ZAZPIRAK BAT deritxona; beste izenik ez esateagatik. Euskerea be bat izan biar litzake danorentzako Ama bat dogun lez. Garbia eta Ezilkorra.

Ara, or nere erantzun umilla. Beste biderik artzia Amaren eriotziaren billa judtia izango litzake.

URKIDI

POZAK ETA KEZKAK

Il onen bigarrenean Irigoyen'dar Alfonso ezkondu jaku. Ainbat urtetan irakasle ta Euskaltzaindi'ko idazkari izan dan «Pontxo» zorion bidean sartu da. Aldizkari onek bizitza luze eta atsegintsua opa dautzue biori, senar barriari ta emazte daben Alkorta'tar Liberi. Zoriona!

* * *

Zuri, irakurle, itaun bat: euskeraz jakin ez arren, euskeraren alde lan dagian gizona ala euskaldun jayotzatik izanik beti erderaz dabillena, zein dozu maiteago?

* * *

Arruza, Lizardi, Azkue, eta abar, aspaldiko urteetan joan jakuzan, Jaungoikoak eskeñi dautsoen zorionera. Axular, azkoz be lenago eldu zan anaiarteko toki ber-berara (Goian Bego au be).

* * *

Sorkaldeko ipuintxoa: Guztiok dakizunez sorkaldean ainbat gobernu daukez gogorkeri edo diktaduran oñarrituak. Noizik-bein, auteskunde antzekoren bat be antolatzen dakie, aozabalen aurrean zintzo agerzeko. Auteskunde orreitan, beti, euneko 99 aldeko boto lortzen dabez. Zer diritxozu orrelako auteskundeetan parte artzea? Gero, alperriko berba asko...

* * *

Gotzaiñak ez dau esan; gotzaiñak beste ori egin bear leuke; gotzaiña alakoa da... atzetik, aurretik baña, zelako labankeriak... zenbat alako!

* * *

Gaur, erriagaz bizi ta artuemonak daukazenari; mendiak ibarrak eta txoriak maita dauzanari; aundikiegaz wiskitan bage, lagun zarrekin txurrutean ibiltzen danari «erromantikoa» deritxoe. Besteok, intelectualak ei-dira, zikin, amesetan, botoiak lotzeko aiña be ez dirala, alkar goratzen eta sari emoten igaroten dabe urtea. Nor ete da jakitunagoa!

PIPER-ZIRI

ZELAN IZENPETU

Aldizkarietan izenpenak modu askotara yarten dira. Geyenetan iru eratara. Ona emen:

Lenengo, izen-ordez, ots: Oxobi, Orixe, Lizardi, Zeleta, Basarri, Kirikiño, Lauaxeta, Otxolua, Mibisus, Abeletxe...

Bigarren, deitura osoaz «tar» atzizkiaz lagundurik, onetara: López-Mendizabal'dar Ixaka, Lekuona'tar Manuel, Arriandiaga'tar Imanol, Etxaniz'tar Nemesi, Enbeita'tar Kepa, Intza'r Damaso A., Altube'tar Seber...

Azkenez, erderaz, au da: Agustin Cardaveras, José de Arteche, Mikel Ugalde.

Lenengoak, euren izenak apaltasunezko ez-izenaz, esanari garrantzia emonaz.

Bigarrenak, deitura osoaz. Askori «tar» atzizkiak min andia damotse, barrikeritzat boteaz. Eta egia esan, ezta alan. Gure errietan amaikatxu bidar onelako esakerak entzuten oi doguz: «Zuek, Egilliortarrok musikalariak zarie» Beraz, Egilliortar bat (Zorion esate baterako) Egillior tar Zorion be musikalaria izan bearko.

Irugarrengoak, erdal yoskerea darabille. Gauza bateri izen bigaz aitatu ezkero, bereziena azkenean doa. Adibidez: eleiz buru, eleiz gizon, eleiz alde, eta abar. Beraz, elitzake egokiago Kardaberaz Agustin, Ugalde Mikel, eta Artetxe'tar J. yartea? Sendi-senidetan, sendia talde eta senidea berezia. Nik neure iritxi apalean onela deritxat. Zuk, irakurle, ez ete?

LARRINAGA'TAR GERGORI

ARGI BILLA

Orain berrogei ta zortzi bat urte, Larraun'go Alli deritzaion errian gertatua.

Jai egun baten, erri ortatik urrean dan leiza-zulo zernolakoa ete dan ikasi naia gizon biri sartu jakoe. Iñori ezer esan bage joan dira.

Illunpera sartzeko argizai koskor bat artu dabe, ta sartu dira malkorpean. Argizaia ixotu ta asi dira barrurago sartzen. Leizea uste baño aundiagoa, alako argizai lodiak irudien tenteko asko, goitik bera, zintzilika batzuk, eta besteak lurreraño jaisten dirala arkitu dabez.

Orreri begira egon dira alditxo baten. Ea noraño luzetzen dan leitza au, diñoe, ta asi dira emoten daben guztia ikusi guran. Argizaia baña urtuz eta amaituz doa.

«Ba, ba, lenbait-len urten gadizan» diñoe, ta asi dira malkorpetik urten guran. Baña, nundik sartu ziran asmatu ordúko, argizai koskorra eskuartean urtu jakoe ta... Pospoloren batzuk ba-daukez baña, orreik gitxi irauten. Iñundik argi izpirik ez jakoe agiri, gizagaxoei. Iru gau ta egunez antxe ibilli dira, goseak galduko ditualakoan.

Artean, erri osoa euren billa. Mendiz, erriz, ta erreka ondoz, euren galdez, arrastorik bage. Norbaiti, azkenean, gogoratu jako leiza-zulo aretan sartu etediran.

Atetik deika asi dira. Ta ordurako zutiñik ezin egonez ebillazanak, eskuak erdi-narrututa, an agertu dira.

Euskaldunok be, Euskaltzaindiarekin batera, Arantzatza'n, ango aitz-zulo batera guztiok sartu baginduzen lez gabiz aspaldian.

Batasuna billatu bear gendula-ta asi giñan. Ori billatzeko alako argizai koskor batzuk emon euskuezan eta asi giñan... Artean genduan argitasuna galdurik... gure artean geduan batasuna be galduta... eta iñork nora jo eztakiala geratu gara illunpean.

Norbaitzuen kaskarraldiz besterik ez garala illunpetik urtetzen, esateraño, eldu gara, edo ber-berok emetatu dauskuela argia, uste izateraño.

Zorionez baña, ez da ori izan. Illun orretan, nora jo? Nere lenengo irakasle ta Euskaltzain jakintsu aretara itzuli nituan nere begiak.

Ziran aiñako jakintsuak izanik, gure ikas-gai oni buruz zerbait ez ete euskuen esango. Orreik Euskalerri osorako ezarri eben «abeza»k ez ete dausku eze erakusten? bai, ba!

Arrezkero euskeraz idatziko zan guztia orren arabera idazteko arren! Ori eskatzean, ezagun zan Euskalerriarentzat, eta euskerarentzat, ori baño bide egokiagorik ez ebela ikusten eurak.

Orduan «abezeda» orri begiratu bat emon neutson. Eta bertan arkitu ditut naiz Gipuzko ta Bizkai'ko j(jo), y(ogiya), x(ogixa); naiz Bidasoz aruntzko h(hau), edo ta ü(hiriia), bizigarri dirala, bakoitza bere alderdirako. Euskaltzaindiak ez dabela orreitako bat bakarrik ukutu nai izan; ez bere bizilekutik beste aldeetara zabaldu nai izan. Ori agirian dago.

Euskaltzaindi arek baña, ez ete ekin h ori Euskalerri osokoa ete-zan, antxiñetan, eta geroztik orri begiramen geixago zor jakola?

Begirada batzuk emon daiguzan areik utzi euskuen lanari. Eta laster oartu gara h ori ederto ezagutzen ebela; bai noiztik asmatua, bai nundik-nora erabillia, zein itzetan eta zergaitik erabillia izan zan, baita noiztik erabillia zan be.

Uhlenbeeck alemanez, euskal-fonetikaz egindako lan eder-ederra, Lakonbe Euskaltzainak frantzeraturik, Urkixo jaunak argitara emon eban «RIEV» ean.

Ori ta beste asko erakutsi dauste, alakorik merezi bage, euren artean artu niñuen lenengo Euskaltzaiñak. Danorren barri datorren «Karmel»en asiko naiz emoten. Argizai txiki baten billa ibillia nozue. Itxain apur bat mesedez!

INTZA'R DAMASO An.
(Egillearen baimenagaz bizkaieratua)

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE Mª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Salneurria, 5 pt. alea

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

GAZTEAK ETA ZARRAK

«AGUR», gure aldizkari oni erriak emon dautson arrera ezin obea izan da. Euskalerri osoaren baztar guztietatik zorionak emoten dauskuezan kartak artu doguz; nik dakitenez bat bakarrik izan dogu aurkakoa, au be baña onartua, erri guztiaren pentzakera nolakoa dan jakingo badogu.

Aldizkari onetan idazten dogunok, esameseri jaramonik ez egitea obe dala uste dogu; astoak udan euliak gañetik kentzeko egiten dituan ankajoko ta garagarrak begitatzen jakuz esamesok. Baña goazan arira:

Gazteak eta zarrak. Orain bi edo iru egun, abade bategaz topa egin neban kalean; alkar-izketan «gu gazteok» esan neutson, eta berak barre eginda «ez gaituk gu ain gazteak onezkero» erantzun eustan... eta errazoia eban. Baña gaur, andik eta emendik, gazte izenarekin edo gazteen izenean dabiltzan batzuk ikusirik, praka laburrak jazteko gogoa esnatu daustenik ezin ukatu nei.

Egia esan, gazteen eta adiñeko edo zarren artean ezbardintasun ugari dabil, baña ez batzuk adierazoten alegintzen diran aiña. Zoritxarrez, Euskalerrian, gazteak bertoko zarrak baño etsai gogorragorik izango ez baleuke, gure etorkizuna ez geunke ain illum ikusiko. Gazteen eta adiñekoen artean ezbardintasunak izatea ez da arritzeko; beti ta nunnai jaso da orrenbeste. Baña ezbardintasun orreik ikurtzat arturik bandokerietan astea asmo txarrez jokatzea da, duda barik.

Gure aldizkari au ta gu korapillo orretan sartzen alegindu dira batzuek... Illetak joten be asi jakuz; jakiña, biologi aldetik adiñekoen bizitzea laburragoa bear leuke izan, idazle askok mundu oni betiko agur esan bearko ei-dautsogu; askotxo esatea da ori, baña Jainkoren naia (sineste ez badute be) aurretik jakitea lartxo da, gaur ez gara ezergaitik arritzen baña. Gai oni buruz azterketan asi ezkero gauza asko gogoratzen jaku.

Lenengoa.—*Jenerazio arteko burruka edo antzekoan ez dagoz zarrak eta gazteak zati edo talde bitan erdibituta; bai batzuk eta bai besteak, iritzi askotakoak dira Jainkoari eskerrak eta zentzuz eta buruz jokatzen dutenak geiago dira orraindik beintzat.*

Bigarren.—*Euren buruak gaztetzat botatzen dutenen artean asko dira orrazirik bear ez dutenak; barregarria benetan «gazte» onen jokaera, aspaldiko ogei urte oneitan ezagutzen geran «gazteon» alkarren arteko oinkada bigun eta labanak jakingo ez bageunkez; ez dira —eta ez gara— baña, mutillak, ain gazteak. Bene-benetan gazte diranen ekintza batzuk goralduz, geure barruan daroagun bildurra estaldu nai izaten dogu. Orrek bai orrek! esan eta norbera etxean, abesti edo txistu otsean; abestiak diñoan lez: «eta poeta, eta poeta etxean gelditu da bildurrak eraginda».*

Irugarren.—*Len esan dogun lez, gazteak ez dira danak iritzi bardiñekoak; gizarteagaz konforme ez dagozanak, mundu obearen billa dabiltza, baña geienak buruz jokatzen alegintzen dira, alperriko jeneraziño arteko burruka orrek ez dautse buruko min larregi emoten, beste gauza asko ikusten dituelako zuzentzeko premiña aundiagoan. Gizarte osoan talde txiki baten izakera argi-bidetzat ipintea guzurrezko irudi billa ibiltea da.*

Hippi ta olakoan itxurak ikusita, «gazteak au ta gazteak bestea» esatea lerdokerri biribil-biribilla dozu, gazte geienak normalak dira-ta. Gizarte paltsu onen aurka lan egiteko ez dut uste alperkeriz, bizioz, drogaz ta zikiñez beterik ibilli bearrik dagonik.

Ideologi aldetik be, beste orrenbeste gertatzen da. Zarata geien ateratzen dutenen asmoak gaztedi osoaren iritzi lez artzen oitu dira batzuk. Jeneraziño arteko sasi-burruka au, azpitik zirikatua da ta geienean, zirikalari gorrixka oiek ez dute aurpegirik emoten; atzetik bultzaka ta zorroa zabalik, noizik-bein gazteren bat sartu daiten.

Gure aldizkaria edo gu beintzat integristatzat be salatu gaitue... zelan ez? «progresismoa» berbalapiko askoren barriketea bada, ez dudarik izan, ni ez naz progresismo orren ingurukoa. Ostera, integrismoa norberaren iritzien alde, erriaren alde, izkuntza zarraren alde, gizartearen aurrerakuntzaren alde ekitea bada, nik integrista izan nai neuke. Bakoitzaren bizitza eta nortasuna ikusi ondoren istoriak epaituak izango gara; istoriaren egizko jakituriak izendatuko dauz gure ekintzak era batera edo bestera.

Gaurko gazteari nik auxe eskatuko neuskio: gure erriaren giroa ikusirik, kopletan ibilteko epe laburra dogu: zarrak ondo egin duten guztia onartu ta txarto egiñak aldatu, baña indar guztiak, al bada beintzat, batu. Alan eta guztiz be ez dakit norartekoa izango dan gure erriari bultzatzeko kemena.

Eta batez be, azken eskari au: izkuntza, euskera bat besterik ez dago, eta dan modukoa sendotu bear dogu; ez dago gazteentzat euskera bat eta zarrentzat beste bat; euskera bat izango da, beste orreik... obe izango dogu ixildu.

Gazteak eta ez ain gazteak sarri abestuten dogu: «gazte gera, gazte, ta ez gaude konporme» baña bai beste au be:

Aitorren izkuntz zarra
nai degu zabaldu
munduaren aurrean
gizonki azaldu.

Izkuntz zar oni izan daiogun beintzat errespeto apur bat, besteari ukatzen badautsegu be.

ARENAZA'TAR JOSU

JENTILLEN SUKALDEA

Urdiain izeneko erria, Urbasa-magalean kokatua. Inguruko erri danak euskera galduta dabe antxiñatik. Zarrak izan ezik iñork ez dautzu gure izkuntzarik egiten. Urdiain'en, barriz, zar eta gazte, andra-gizonak euskera utsa ezpanetan. Amak umei, lagunak lagunei, euskeraz. Euskera goxoa, polita. Nortasun andiko euskaldunak dira erritarrak. Bost urte dirala, J. M. Satrustegi, len Luzaide'n egonikoa, bertako apaiza. Gaztea, jatorra, gogotsua. Jo ta ke, su tar ga, emeki-emeki euskeraren alde diarduana.

Gu joan giñan eguerdian, antxe, erriko enparantza moduko batean egoan, gurdi zar batean jezarrita. Eskuetan «La Gran Enciclopedia Vasca» -ren iyekia, zizai buruzkoa. Inguruan bizpairu baserritar zar. Ta arei agotik ziza bakoitzaren lekuko izenak jasotzen. Danak adurjario, pozarren. Apaiza bera be pozik, euskaltzale batzuen ikustaldia izan ebalako. Bere etxean amaiketakoa eskeiñi euskun eta beste bat arte esanaz, irriparretsu agurtu ginduzan. Bere ustez, gizon batek bizi-aldi guztia eman daike ortan iñoiz bukatu gabe.

Irurak aldean bazkariten baserri batera. Oraindiño beko sutan lapikokoa berotzen. Etxeko jaun-andreak, jatorrak eta esku-zabalak, abegi ona egin euskuen.

Ain zuzen be, egun areitan millaka ta millaka kilo ta laurleko jasoak ebezan perretxikotan ta zizak salduaz.

Giro ederra, zoragarria. Epel samarra, ibiltzeko griñatzen ebana. Bazkal-ondoan basoaldera artu genduan. Aretx-pagoak, ugari-sendoak, albo batean erriko piszina. Ta ara baiño lehentxoago, Aitziber Ama Birjiñaren baseliza. Ondo-ondoan, aren ormari dautsola, andretxea. Eleizan sartzen ziran andrazkoena, alegia. Urrats batzuk aurrerago ta: or «baserreka» esan euskun erriko neskatilla lagunak. Ta an urrutian dakusuten aitz-zulo andi ura: jentillen sukaldea deritzaiona.

Iñularrean erri-aldera. Agur biotzekoena alkarri egin ta poz-eztitan bakoitza bere zulora.

Egunak joan egunak etorri, gero ta josiago ditut gogoan ango kale ta etxe txukunak, ango erreka ta baso itzaltsuak. Aitziber baseliza, bagillaren 28-garrenean bere jaia. Jentillen sukaldea ta inguruko pakea. Baselizarantza ginjoazala, baserri batean egon giñan ate-joka, ermitako giltza jasotzeko. Gizonezko bizardun, ben-bentsu bat atera yakun. Aren itxura ta izkera oartu ezkero, oldozketan jarri nintzan. Basoko gizon sendo-mardul onek, Aitziber Andra Mariagan ala Jentillen sukaldeko ortze urdin-garbian uste andiagoa ete dau? Batek ba-daki! Dana-dala, ez emon ari jakinduri-zeazkeri asko. Zentzuna ta biotz bakuna izan ditzala ta naikoa dau zeruratzeko. Enparauak, kaletarren amets zorook ete diran nago amaikatxo aldiz.

Iñoiz aratzen ba'zara, irakurle, galdetu idazkun au daraman etxeagaitik: «Esta casa es de Miguel de Ondarra, 1742».

Ta 1970-garrenean zeurea bai'litzan artu daikezu.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL



ZARRAGA ABESLARIA

Mungitarren artean guztiz ezaguna da Joseba Zarraga. Mutil jatorra, bere jatortasunak eroan dabezela esango neuke bere izen-abizenak abeslari onenen artera.

Bere abots gozo-gozoak, izakerak eta nortasunak emoten dautse bizitza bere abestiari, badaukagu ba Mungitarrok denpora askoan itxaroten izan garan abeslari bat.

* * *

—Zenbat urte daukazuz?
—*Nik 16 urte daukataz.*
—Nun jaio ziñan?
—*Sondikan jaio nintzan, eta orain 14 urte bizi naz Mungia'ko Zabalondon.*
—Noz asi ziñan abestuten?
—*Orain urte bat inguru asi nintzan gitarra ikasten neure kontura, asko gustaten jaten ezkero, eta gero abestuten asi.*
—Musika zeuk sortzen dozu?
—*Bai, nire abesti guztiak neuk sortundako musika daukoe.*
—Letrak norenak dozuz?
—*Don Paulino Solozabal'enak, nik emoten dautsat neure sentimentua, eta gero letrea berak jartzen dau.*
—Bear asko emango dautzu abestiak sortzeak ezta?
—*Bai, bear asko emoten dau, lenengoz abestuten danetik, osotu arte, reforma asko egin bear izaten da, baiña orretarako daukat lagun Paulin.*
—Pentzaten dozu kanta zarrak barriztatu leikezela?
—*Nik uste dot baietz, gaurkotasuna emon ezkero, eta letrak piskabat aldatu ezkero, atsegingarri egiten dira gure belarrietara.*
—Zenbat jaialditan parte artu dozu?
—*Lenengoz Mungian, gero Otxandianon, Bilbon eta Bermion.*
—Nun izan zara ondoen artua?
—*Joanazen leku gustietan ondo artua izan naz, txalorik gozoenak, neure errian, Mungian lenengoz urten nebanean. Niretzako egunik ederrena izan zan.*
—Zeure eretxian euskal abeslaririk onena?
—*Niri geien gustaten jat, Benito Lertxundi.*
—Eta neskatan, zein onena?
—*Estitxu eta Lourdes Iriondo.*
—Diskorik egin dozu?
—*Oin daukataz abesti batzuk preparata, eta uste dot oraingo udea amaitu orduko lenengo diskoa grabako dotela, Oñatibia jaunagaz, Donostina.*

* * *

Eta ziur gagoz zure disko barria ondo artua izango dala euskaldunen artean, eta biotzez eskatzen dautzugu segiteko bide orri, euskal erriaren goramenerako eta Mungia'ren onerako, Zorionak.


GOIRIGOLZARRI TAR XABIER'EK

IZARRA ALDETIX

Urtero lez aurtenbe, Bilboko ferrokarrilletako langilleak, egin dabie euren irten alditxoa.

Aurten, Arabako Izarra izan da aukeratutako lekue, uger egiteko piszina eder bat, arizti paregabe baten erdian dauko erri onek, eta araxe juan ziran.

Goizeko amaiketan mezea entzun ondoren eta txistuaren soñua edonun entzuten zalarik, paella eta ensalada txa-



Bilboko ferrokarrilletako langilleak antolatutako jaialdian, «Iru Bilbokoak» abesten.

pelketak antolatu ebiezan. Ensalada txapelketa emakumezkoendako, eta paellana gizonezkoentzat.

Eguraldiak laguntzen zualako alde batetik, eta «Bizi Nay» taldearen dantza ta «Iru Bilbokoak'ren abestiek gaitik bestetik, eguna oso alai eta pozik igaro zuten juen ziranak.

Azkeneko orduan, bultziaren erruagaitik, gauzak apurbat okertu ziran, baña ala ta guztiz datorren urtean ostera be alkartzeko asmoa nabaritzen zan danen artean.

ARAMOTZ

ZUBIRI

LASTER ZABALDUKO DA

Ercilla, 30

IRAKURLEAREN TXOKOA

«AGUR» aldizkariaren zuzendariari, agur t'erdi: Zestuarrok ustegabeko poza izan degu, Ongi-Etorri ta Zorionak!... Beraz «AGUR» aldizkaria. Zorionak! ta jarraitu artutako bideari, jokera ontan ez bait'dago mugarik, bizi geran artean lan egin bear dugu sutsu ta eten gabe. (S'tar J).

* * *

Jaunok: Jaso det bigarren zenbakia; izan ere, lenbizikoa bezin ona, ederragoa, atera dan ezkero, zenbaki ortatik beste amar ale bialtzea nai nuke. (O'tar I. M., Tolosa).

* * *

Zure aldizkari ederraren lenengo zenbakia garaiz jaso nuan eta arren eskatzen dizut nere izena arpidedunen artean jarri dezazula... Anitz urtez argitaratzen jarrai dezazutela ta zorionak emanez agindu zuen esanera dagoen. (A. M. L., Tolosa).

* * *

Zuzendari eta abar: Agur bat eta ZORIONAK, olantxe izki aundiekin. «AGUR» agertze orekiko izan dozuen burutapen onuragarriagaitik. Idazkazal barruan doaz beste arpidedun biren zuzenbideak. Ekin eta jarrai. (M'tar M., Zaldibar).

* * *

ZORIONAK eta URTE ASKOTAN! Aurrera! gure izkuntza ederra lur gaiñean narraz erabilli barik. Ba-geunkan Bizkaian onako aldizkari baten premiña! (Markiña'ko K.)

* * *

Gaur berean iritxi zait zuen «AGUR» aldizkaria. Zorion? Pozez beterik ari naiz irakurtzen. Guzia ez dut oraindik irakurri. Baño irakurri dudan guziak atsegiñez bete nau. Zorionak eman gabe ez ninteken gelditu. (I'tar D., Iruña).

* * *

Zuen AGUR oso pozik artu dute gure jendeak. Nere izena ere ar zazue arpidedun artean. Laguntza aundia izango degu illeroko ori. (E'tar N., Donostia).

* * *

Bizkai'ko aldizkaria ikusi gura dabe Iruña'ko andereñoak; gogotik irakurriko dogu amen be. Neure agur bategaz, zeure AGUR arte. (G'tar M., Iruña).

* * *

...pero pienso en si no ha de ser revista excesivamente bizkaina y por consiguiente enemiga acérrima del «Euskera Batua», del que soy sincero adepto a pesar de los también excesivamente utilizadores que pueda haber en la «h» adoptada. En esta misma fecha pero en paquete aparte les devuelvo el ejemplar recibido. (E. A., Algorta).

* * *

Emen, zuen aldizkari berri ori atsegiñez jaso dala zer esanik ez dago. Eta erabiltzen dezuten euskera txit garbi eta erreza dala iruditzen zait. Segi, ba, bide ortan eta zorionak. (M. P. O., Donostia).

* * *

Entzutea nuanarren, zuen illerokoa jasotzerik ez dut izan orainarte. Lagun batek ordea, leelengo alea biali dit, ikusi eta irakur nezan. Alaxe egin dut: aurrenetik azkenera irakurri. Eta, ots!, begirunez eta atsegiñik aundienez irakurri ere. Emendik aurrera, illero irakurri nai nuken bezela. Biali mesedez. (J. M. I., Azpeitia).

* * *

Jakitun naiz «AGUR» izenarekin agertu barri dan illerokoatzaz eta bertan idazten duten idazleak geienak neure gogokoak izanik ziur nago atsegin izango zaitela eta orregaitik eskatzen deutsuat arpidetu nazazutela urte baterako. (P. K., Arrasate).

KONTU - KONTARI

BASAMONTUKO ITURRIA

Pralle zarrak, uurrun joan bearra izaten eban egur-bila, lekaidetxe edo komentuko janariak egosteko.

Neke aundiko lana zan; ondarrezko eremu, lekarotz edo desiertua igaro bear izaten ebalako.

Basamortuaren bide erdian, zugatz eder bat egoan kerizpegarri, ta bere azpian iturritxoa ur gardenarekin asegarri.

Pralle zarra eguzki galdatan, egarriz, andik igaroten zanean, egarri aundiz egon arren, edan bage aurrera jarraitzen eban. Jaungoikoari eskintzen bai eutson sakripisioa.

Ori egiten eban bakotxean, zeruan izar bat piztuten zan.

Egun batez, pralle gazte batek lagundu eutsan egurretan.

Itxultzean, egurrez zamatuta. kargauta etozan pralle biak. Gaztea buru-makur ta ixilik, ondar igor igikorraren ganean balantzaka; ao ta ezpain legorretatik bitsa eriola. Baina ixil-ixilik gizajoa.

Alako baten, onek, pralle gazteak, oiu pozgarria egin eban: «Aita, auxe zoriona! Orra iturri gardena!»

Pralle zarrak, ori entzutean burutapen au izan eban: «Nik edaten ez badot, gizajo onek bere ez dau edango, neure jokera jarraitzearen, ta gaur, edan egingo dot».

Pralle zarrak edan eban danga-danga. Gazteak be bai nai aina.

Barriz egurrak leporatuta abiau ziranean, pralle zarrak esan eban berekautan: «Gaur zeruan piztuko ete da izarra?»

Ta... bapatean, izar bi piztu ziran zeruan.

Lanari saria

Uri artan, barri aundi bat zabaldu zan: Erregea etorriko zala uritxu polita ikustera.

Erregea aurrez-aurre ikusteko aukera ori, inork ez eban galdu nai izan, ta bazkal-ondoan mundu guztia an joan zan uriko plazara, euren solo ta baratzetako lanak bertan-bera laga-ta.

Alkate jaunak, bere uriko mugan itxaron eutson Erregeari. Agurrak alkarri egin ondoren, Erregeak bere tribulian sar-erazo eban alkatea. Bai joiazan, trakatraka, zaldien apatx-otsean.

Erregeak itandu eutsan alkateari:

—Emengo solo-baratzetan, lanik asko dagola oartu daroat, baina ez dot inortxo ikusten lanean. Alper ete dira zure errikideak?

Ara —jauna —erantzun eutson alkateak—. Esango deutsot ba: Emengo inguru guztian zabaldu da Errege berorren etorrerea. Ta Errege berori aurrez-aurre ikusi nairik, mundu guztia joan da plazara, Errege berorri arrera aundi bat egiteko asmoz.

Erregeak ez eutson ezer erantzun. Ixilik jarraitu eben aurrera.

Urira eldu baino lentxoago, Erregeak, andratxo bat ikusi eban soloan zintzoro lanean ari zala. Geldi-azi eban tribulia. Jatxi zan bertatik. Joan zan, andrea lanean egoan lekura ta... itandu eutson:

—Andratxoa: Zer dala-ta lan egiten dozu zuk, beste guztiak jai egiten ba'dabe?

—Aaraba jauna —erantzun eutson andreak, aurrean eban gizona nor zan jakin barik—. Nere senar eta seme-alabak urira joan dira, Erregea ikusi ta agurtu bear dabiela esanaz. Baina nik, gure soloetan lan asko egiteke egoala ikusirik, bertan gelditu naz, aldodantxoa eginaz.

—Ooondo baino obeto egin dozu! —erantzun eutson Erregeak.

Ta urrezko diru batzuk emonaz esan eutson:

—Zure senar ta seme-alabei, etxera etorten diranean, auxe esango dautsazue: Eurak Erregea ikustera joan ba'dira, Erregea zu ikustera etorri dala.

Aaxe Erregea!

ABELETXE

Gure on Joseba Aundia

Arrituta gelditu da On Joseba. Olakorik ez eban sinistuko. Norengandik eta bere langusiñearengandik!

—Ain gauza gitxi jauk ze...

—Ezin neiken sinistu diñonana, neska. Ik egin dozan ikasteak egin eta gero ainbeste baztarreratzia euskeria. Ain gauza gitxitzat eukitea gure euskal-literatura txikia! Eta Axular batek ezteun ezer esaten iri?

—Baa...

—Olakorik, Bixenda! Iritzi-emoteille onak be esan jonen ori.

—Baaa...

—Eta gure errikoi literaturia? Gure bertsolariak be or daukonaz ba. Kanta zarrak be bai.

—Baa, baaa...

—Sinistu be ezin junat egin, Bixenda. Gure aitaitak egin jonanak be ezteuna esaten ezer?

—Gauza aundirik ez.

Arrituta eta minduta geratu da On Joseba. Olakoak entzun bear bere etxean! Aitaitak euskeraz ainbeste gauza idatzi eban etxean bertan!

Kanpoetan ibili da beti On Joseba. Ortik emon dau bere bizitza luzea. Biotz barruan eroan dau Euskalerria; gure gauzak, gure jakintza, gure izkuntzia.

Idazle ona izan da, erderaz. Nobel-Saria ez, baiña entzute aundiko beste sari asko bai irabazi dauz.

Batetik bestera dabil egunokaz On Joseba. Eusku-makillia eskuan dabela. Lorategi zabalean eta etxeosteko basoan.

Artega dabillen itxuria dauko egunokaz. Badarabil zer edo zer buruan edo biotzean. Aurrea emon dautso lengusiña kaskariñari.

—Zelango ordaintza emoten dautsan gure aitaitari Bixendak. Olerkari ona izan zan gure aitaita. Ezin geinke ukatu ori, baña gure buruarin orrentzako ezertxo be ez dira gure aitaita, ez eta Axular bat, edo Mogel, Elizanburu, Lizardi, Kiriñiko, Orixe eta besteak. Kaskarin urriñengoa!

Or ba, zer erabaki daben On Joseba Ibarburu zaldun jaunak azkenean. Bein be ez dau idatzi euskeraz, gaztetan aitaitak eskolatu baeban be. Jo ta ke asi da euskeraz idazten, orain bere irurogei ta amar urteokaz. Iñoz baiño kementsuago dabil.

—Parkamena eskatu bear dautsat etxean ikasi neban euskeriari. Auxe izango da nire azkenengo liburua. Neureak esango dodaz bertan, ixilik itxi barik ezer, demontre!

ÑAPUR-ZARRA

BIONTZAKO

Kastillatik etorri aizen uso-talde multxoa
Euskalerriko erreketan edan duk ur preskoa.
Oian oneik maite badituk entzun euren oiua:
«Nik gogotik emango dizut itzala ta giroa,
zuk ordaiñez ekarri zazu nire osto-mintzoa«.
Biorentzako ibilki baituk gaur mendiko laiñoa,
biorentzat elduko ere udazkenez egoa.

ARRUTZA'tar MIKEL
(Etxebarri'tar J. A.'k aurkitua)

KRESAL - TXIPRIXTIÑAK

Agur, AGUR.

Zeure deiari erantzunez natortzu. Poz-pozik etorri be, neu be Bizkaiko erri batean sakabanatuta bizi nozun idazle bat nazan ezkero.

Zarra nozu baiña, zarra: Kitolis zarra. Arrantzale aguratxu bat.

Ez barrerik egin. Arranondon ez dago etxadi, aberats edo txiro, bere ezizena eztaukonik.

Nireak be jatorririk eukan berea. Baiña, ur-bedeinkatu barik bateoak egiten dabezanak ez egozan kordela bertan bera erriateko, eta niri be emon eusten nirea. Esango dautzut zelan.

Elizan, beti ate-ondoan egon barik, aurrean tokia egoten zala-ta, aurreko alkietara joaten asi nintzan. Eta an, alkate-alkiaren ostean jarri. Ain zuzen, toki atan bertan, Kitolis zarra egoten ei zan antxiña batean eta...

«Per omnia secula seculorum. Kitolis izango zara zu».

Eta ordutik Kitolis nozu ni, errian eta erbestean.

Jakin neban baiña nor izan zan nire bateo-emolle. Pantxike Puñetas izan zan. Bai. Pepa Motzaillek esan eustan.

Ni neu be, branka emoten dakiana naz eta enegoan Pantxike Puñetasi baketan usteko, lagateko. Eta Kantxopean ikusi nebanean, an izan zirian kontuak. Gisajeari errukia be artu neutson, belaunbiko, guztien aurrean, barka eskatu eustanean.

Larri artu neban. Egia. Artu bear be bai, a nor zan ondotxo nenkian da. Jiesus-Ama Birgiñea! A gora-goraka ta bordioka asi zanean Kantxopean etzan beste erromerik bear. Baiña an egoan bestea, Pepa Motxallea, irrikitzen, ur-ganeko bitsetan, noiz nik bere laguntza eskatuko.

Ez neban aren bearrik izan. Puñetas konturatu egin zan an egoala, eta milla ukapen eta konjuru egin ostean, konturatu bizi guztiko arerioa an eukala eta egia aitortu bearrean ikusi zan. Beste txarrogoko ezizen bategaz ni ez ikustearren asmatu ei ziran Kitolis.

Arrazoi apurbat be ba eukan or. Berari Puñetas ipiñi eutsonak baiño aro obea izan neban nik.

Ba dakizu, ba, Agur maite. Kitolis, nozu orain: Kitolis zarra. Jakiña, Txomin Agirrek ezagutu eban a ez. A aspaldi iltzan.

Ni enituan a lez aitak mazira eroan. Nire aita ugaroi andietako arrantzalea zan da. Itxasoko barri ondo dakit baiña. Bai orixe. Toleta baiño asko-asko andiago enintzala artu neban itxasoko bateoa. Eta orduan edandako kresal-ur guztiak barruan daukodazala uste dot. Eta norbaitek txanpela atezaten badoste, purrustadaka, olatu amorratuak lez urteten dauste kanpora.

Baiña zu ez bildurtu, nire Agur ori. Kresal-ura ez da ain txarra. Gazitxua dala aukeran. Orixe. Ostantzean, gatx andirik eztauko. Eta, bear bada, osasungarri be izan leiteke.

Oiñak indarteko eta begietako makarrak kentzeko be oso ona dala esaten ei eban nire amamaren aititaren izter lengusoaren osaba sendagilleak. Ni neukpe, entzun izan dot barruko odoldiak kanpora botateko oso ona dala goizean barau rik edan ezkero.

Olan da guzti be, nik ez dakit zegaitik, baiña, Anton Kaxuaneko patxarrari fede andiagoa dautsat orretarako. Ao-sapaiaren gora-berea dozu ori, kontixu.

Ba dakizu, ba. Zarra nozu ni. Aspaldi emon nebazan onenak. Baiña, malutak orrasteko ta olangoak egiteko gauza nozu oindiño, eta ementxe izango nazu «Kresal-txiprixtitxuak» aizeko aldetik betetan.

Potin txikietako arrantzalea izan nozu beti. Eta oso gogoko yataz ur-meetako arrantzak: Luxamatan, krabatan, txibi txikitan eta abar. Arraiñik goxoenak atrapaten dirialako. Baiña, gure portuetan ontzi andiak egin dira ta «arrain-konjelatuak» merkatuak idegi dauz. Eta, gura ez gura, ezin joan geintekez orren aurka. Konturatu egin bear gara Kantauri itxasoan erdaldunak geiago direala euskaldunak baiño, eta itxasoko ollarrak ez dabela kukurrukorik egiten. Len zer izan giñan baiño gaur zer garan arduratsuago ikusi bear dogu, biarkoari itxaropenez begirateko.

Agur, «Agur». Eta beste bat arte, Jaungoikoak gura badau.

ARKOTXA'TAR J. A.

BILI BALTZAK

Ez; esakera zarrak irakasgarri zeatzak izaten ei-dabez, ez dira baña iñoiz ikasten. Ta ala izan bear edo esakerea galduko litzake. «Ura joan ta presia», beti edo geyenetan, beardanean eta garaiz egin-bearrak egingo ba'genduz, esakera orrek iraun bearrik ez, ta orrelaxe beste guztiak be.

Egunero baña, arri berberean sostor egiten dakigu gizasemeok. Gizonok ba-dakigu, batzuk onetan eta besteak beste orretan, okerbideren batetik iges egiten edo aurretik igarrita neurriak aukeratzen, gitxienetan baña au. Iñoiz, larregian-edo jarten garala, konplejo-aulkerietaraiño murgiltzen gara, ta ez da erraza jakitea zein dan txarrago, itxu-itxuan sostorrean jausi ala zorrotzean igeska barregarri agertu.

Ainbat iges-aulkeri izango dodaz nik be, neuk igarri barik. Bata baña, jakin-jakiñekoa dot eta erabat sumintsu. Alanbre-mee orren erre usaiña arrapatzean, basa-pizti ernayen antzera belarriak zut jarten yataz eta bat-batean jarki.

Bein, iparraldekoen «teen» sasoyan nintzala, ikastaroko lagunak lagun nebazala, or joan giñan asteroko ibillaldia egiten. Gazteiz'ko kanpaipean izaten ziran eta iñoiz bedarkiak, urrengo zugatzak baita etxe zar eta gazteluak aztertuz gure ikasketak indartzen alegintzen giñan. Egun aretan, Ali auzotik aurrera goazala euriak artu ginduzan eta alako baten, inguru areitan ain urri diranetako basetxe baten sakapean lotu. Gaur be begien aurrean daroadaz lokatzadun bide aren beste aldeko osintxua, amar bat oiñazkada zabal eta arra bi sakon geyen be; inguruko orlegi biziak eta or-emenkako kiñarra batzuk eta arta gazte banakak. Atzenengo tantak ur azalean dantzan ebillazala, ara nun, ataditik arin baña orekan amar-amabi txita ta euren ollo amea. Ez ziran edozelangoak, amea gorri-arrea ba'zan be, txitatxoak baltz-baltzak, bai ba aatatxoak ziran da! Ikusiz batean, iru lagun urreratu giñan paiittaren bat eskuartean jasotzeko asmoan, ara baña, amea jarki yakun eta bere «kok-kok» izkuntza aretan gure lekaide irakaslearen asarreerremuskak gogoratu eustazan. Bitartean, txitak ariñeketa baten bidea zeartuz joyazan, ta amea an zan euren atzetik egoak zalapartan ta beste «koak-koak» luzeagoak egiten. Ezin nentzuke esan au izan ete-zan bere lenengo estualdia ala aurrerago be orrenbestekorik ikusita zanik; txitak, danak uretan ebillazan eta amea estu, aruntzonuzka deika larri bere umetxoeri legorretik.

Lagunak aurrera egin eben, an geratu nintzan ni ordu-laurden baten zirkiñik egin bage ollo amearen estudialdiak lotuta. An burruratu yatazan nere gurasoak, orrenbestekorik egiten ete-neutsen ba! Ta nere onbearrez eziten iñardueneri, nere adizkideeri! Noraiñok mintzen ete-nebazan! Ez jakiñean iñoiz, baldankeriz ez ete geyenetan?...

Ta ara, joan nintzan osiñaren beste aldera ta arri-koskor batzuk jaurtiaz uretatik amearengana etara nebazan bilixak, ama zintzo aren bakerako. An nindoyan gero bidea zear lagunen billa, alperrik ibilli nintzala jakin arren, barriro be orrenbeste egingo nebala ziñestuta. An bertan, gazteleraren alzoan sartu yakoen au nebala ausnargarri. Azi egixak belak ta...


BEIZTEGI'TAR JON

JAZKERA BARRI ETA GALTZETORRATZEKOAK

Querricabeitia

Artecalle, 32 ◆ BILBAO-5 ◆ Urrut. 21 65 67

KIROLAK



ARO BATEN GARBIKETEA

Kiroletako gora-beren garbitasun bat egiteko aldia eldu dala esan daikegu. Naita era askotakoak izan eta alkarregaz nastatzen ba'dira be, Tour'aren amaietik Donosti'ko estropadak arte, alako epe makalago bat sortzen da.

Bai, eizteriak oraintxe diardue gogor gari-alorretan, baita urietako jaien pelota joko ta lasterketak be. Ala ta be, udako oporketetan geienok geure oituretatik iges egiten dogu.


Ara ba, ikusi dagigun arin-arin, azken urte onetako giroa. Aurrean eta indartsu Urtain dagola esan bear, onek lortu dauskuna ez da edozeiñek egin daikeana. Zestuarra izan bearrean, beste tokiren batekoa izan ba'litz, ez zan gaur izparringietan zabalkunde aski izango bere goralpenak agertu eziñik.

Iribar dator urrengo, gazte onen jatortasunak biotz guztiak zabaldu dautsoz. Bere ostikoketa taldeak be, Urtain'en antzera, idazkortz biurriak aurkitzen dauz sarriegi.

Retegi urrengo, benetalaria da-ta, ez dau neurriko aurkalaririk idoro. Bere joko eutsigarriari ekiñalean, makaldu barik, jarraitzen dakialako zati baterako txapeldun izango dogu, edo azkarragorik ba'litz or zear, orren benetasunagaz jokatzen ikasi bearko dau ezer onik egiteko.

Polipaso, Arriya, Keixeta'aren urrengoak eta ainbeste ta ainbeste, ba-dira sail onetan kiroltzale eder eta ugari, gero, erbestera joan eta erbestetik datozala, or tresnadun pelotariak, emen be aspaldiko Txutxo Larrañaga oindiño irakasle eta suspergarri. Errikoi jolasak diranetik, guretzat ikusgarrienak bear leukeez izan.

Azkenerako laga doguz txirrindulariak. Aor Zubero ta onegaz Galdos, Gandarias, Gabika ta A. González, beste obeto aizetutako asko baiño sutsuagoak, Merckx bakar orri bildur barik jokatzen dautsela; ez beste izen andiagoko Gimondi, Mortesen, Pingeon, Altig eta barregarri geratzeko bildurrez etxean lotu diranak lez aurrez azpiratuak.



Gure oneik, beste goiko guztiok lez, idazkortz zintzoagoak bear leukeez euki, eta jarraitzale benetakoak, idatziak idatzi ta irakurri, orrenganako zaletasuna urtuko ez jakoenak.

Ara baña aldi onek eraginda: Gaur uretara goaz, itxasora edo ibaietara, igeri edo bustialdi bat artzea atsegiñetakoa jaku. Gogoan izan beti, or ezbearren bat izan eta ilten diranak, ez dirala sarri itoak, aukera txarrean uretara sartu ta konorta galdu dabenak baiño. Jan ondoren ariñegi, urdail egosketa astun bat osotu bage, bero edo neke larregiren pean ur otzetan sartzeak, sarri, naiz gazte naiz zar, konort barik lagatzen dakiez eta uretan murgildu ezkero ez dago itobearra besterik. Ez egizue astakeririk egin, bein nere lagun batek, besteok ur-jantziak ipinten giñan artean madari ale bi jan ebazan, an joan giñan danok alai uretara, Deba'n, eta eskerrak belaun betekoetan izan zala, urriñago ba'litzake iñork ez ikustea ta gaur a gitxiago gure artean. Orkatillak busti orduko, burua galdu eta luze-luze uretan murgildu jakozan ao-surrak, barregarrikeriren bat egiten ebalakoan ostikoka zirikatzen asi gintzazan, baton batek baña belaxe igarri eutson ez egola ondo ta leorrera etara genduan, an, eukazenak, bazkarikoak eta madiariak bota ondoren, lasaitu zan eta laster berera etorran.

Alkarregaz eta jolasean giñalako bizi da gaur.

IZAR

«CIUDAD DE IRUN» Euskal Idatz Saria

EUSKAL OLERKI SARIKETA.—Gai, neurri eta edozein itz-amaierazko olerkiak biali daikez, 400 lerrokada gitxienez ta urrengo sariak eskeintzen dirala:

1) **Urrezko Gaztelua.**
2) **40.000 lauerleko.**

BETEBEARRAK: Betikoak; 1(Edozein datorke, urtez, bizi-tokiz eta erritasunez edozelakoak izan arren. 2) Iru ber-idatzitan eginda bialiko dira idatz lanak, izen-ordeagaz izenpetuta, beste azal itxi baten barruan datozela egillearen izen-abizenak, zuzenbide eta bizi-lekua. 3) Idatz lanak Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa'ra biali bear dira (Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, calle Garibay, 13 y 15, San Sebastián) bere esku geratzen dirala lanak baita argitaratzeko eskubide osoen jabetza be. Idatz lanon itzultzea, 1970'gngo. Urrillean eta Azillean eskatu daike; epe ori igaro ondoren, puzkatuak izan leiz.

URIONA'TAR BALENDIN (G. B.)



«Agur» au agertzen dan egun onetan bertan, il onen 30'gnean, bere eriotzaren urte-urrena beteten da.

Gazte zintzo, lagun on, lenengo maillako txirrindulari, gizon oso, euskaldun obea, orixe danori zan gure Balendin.

«Agur» ek eta «Agur» ekoak ezin dogu aztu.

IDAZTIAK

AZKUE'REN IZTEGI AUNDIA

Barriz argitaldua ale bitan. Lengoak eta 5.000 itz geiago daroaz, Azkue jainak arrezkero batuak.

HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE BIZCAYA

E. J. de Labayru'k idatzia. Zortzi ataletan barriz argitaldua. Lengoak eta egilleak galdutzat eukazanak bere ba'dakarz.

HISTORIA DE NAVARRA

Sei aletan au. Moret eta Aleson'ek idatzitako ANNALES DEL REYNO DE NAVARRA.

CANCIONERO POPULAR VASCO

Ale bitan. Azkue jaunaren bilduma ikusgarria; gizon orren lanari eskerrak, iñoiz galduko ez diran ainbat abesti ta doñu.

REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS

Ogetabost ale. 1.906'tik 1.436'gn. urterarte Euskal-jakintzan gorenengo izan ziranen lan garrantzitsuak.

DICCIONARIO HISTORICO GEOGRAFICO DEL PAIS VASCO

Ale bitan, 1.802'gn. urtean REAN ACADEMIA DE LA HISTORIA'K argitaldua. Gaur erdi galduta dagozan izenakaz aberastuta.

NOTICIA DE LAS COSAS MEMORABLES DE GUIPUZCOA

Iru aletan barriz argitaldua au bere; Gorosabel eta Etxegaray'k egiña.

COLECCION DE BOLSILLO DE LIBROS VASCOS

Ogetabost ale. Era guztietako irakurgaiak.

UMENTZAKO IPUINIK EDERRENAK?

Ogetabost ale, margoz apaindutako ipuiñak.

Eskatu «La Gran Enciclopedia Vasca» ra.
Apartado núm. 1.510. BILBAO



GAUR, ELEIZAN, IZAR ANDI DIRAN GIZONAK

SUENENS KARDENALA

Helder Camara gotzaiña Paris-en izan da, ta itaun au egin dautsoe: Zertzat dozu Suenens Kardenal Jauna? Helder Camara-k erantzun dau: «Suenens Kardenala gogoratzean, auxe uste dot: Batikano Bigarrenari bizia emon gura dautsoenen aurrendaria dala. Kepantzat (Aita Santuantzat) gizonik zintzoena da, baiña gotzain talde barruan ikusten dau Kepa; gotzain talde au Eleiz osoari begira...» (1970Bagillaren 2'ko, «Le Monde»).

Alan ta guzti be, Kardenal Suenens'en izen ona gingan aurkitzen da gaur Erroma-ko Jauntxu batzuen artean. Badira Erroman, burlezar antzean diñoenak: Malinas-Bruselas'ko Kardenala barik, *Bruselas'ko Kardenal (malignoa) Dongea* dok ori.

Zer dala ta, mailla orretako eleiz-gizon baten aurka? Egia esateko, Suenens Kardenala, ez doa gaurko Eleizan agiri diran bardintasun bideetatik. Batikano Bigarrenean, bitartekotzat ziarduala, bere alde eukozanak (geienak) gaur be alde ete daukoz? Batzar Nagusian izandako eleiz-gurasoen erantzuna artzerik ez dogu; orain lur zabalean zakabanaturik diralako. Izango dira ixilik iraun gura leukenak be.

Dana-dala, gaur, aldezko ta aurkakoak, agirian diardue erri-eretxiaren ago-miñetan.

Zer esan dau, Malinas'ko Kardenalak oraintsu?

Bere nortasunean oiñarriturik, lurraren bost aldetakoei itz egin dautse; bizkarreratzen iakon aztunaren barri aurretiz izanik. Bere kemena ta azkatasuna begi onez ikus dabez edonun. Aren esanak entzuteko egarriz eta itxaropenetan gara.

Baiña, zer esan dau, Erroma orrenbestean artegatzeko?

Joan dan Orrilla-ren 12'an, alkar-izketa bat izan eban Paris-ko «Le Monde» izparringiko H. Fesquet dalakoaz.

Eleiz-gizonen ezkongabetasuna

Eleizgizonen ezkongabetasunaz auxe esan eban: «Urteera bako bide illunean utzi dau auzi ori, Paulo VI'garrenak Batzar Nagusian gai orri buruz itz egitea galazoteak. Auzia orrela ittoteak ez dau ozka garbitu. Batzar Nagusi ostean, gotzai-alkartasunean jokatzeko giroa, alako begionez ikusten zanean, Paulo VI'garrenaren erabagia ez da etorri ordu onean, eta au Eleiza maite izanez eta Gogo Gurena'ri zor dautsodan itzaltasun osoaz diñot».

«Holanda'ko Gotzaiñak alkar-izketa nai dabe euren batzarretan gai onetaz Batzar Nagusian debekatua izan zalako ainbaten. Egia esateko, aldi aretan ez eban gai onek, gaur dauan lako sumintasunik».

Eztabaidari lekua emon

«Egoera onetan, Gotzaiñok espata ta orma bitartean gagoz. Alde batetik Erromak baietz uts eta motel bat gura izan dau, beragazko lotsa-ona zabaletara ager dedin. Gotzain asko badira, auzi au ikuskeran eta bildurrean Erroma-gaz batera datozanak. Gotzaiñok, zaparradan bialdu oi dabez zorion-agurrak, erdi bi egiñik ez diranetan, jakiña».

«Baña beste alde batetik, jokabide onek egoera mingarria sortu dau eleiz gizon eta kristau askoren biotzetan; eta oneik be Eleizanak eta Eleiza maite dabenetarikoak doguz».

«Aita Santuari bialdu dakozan telegramak alako zurrumurru bat atara dabe eleizbardintsuak, ez dau aparteko otsik zabaldu».

«Holanda'ko Gotzaiñak, euren eleizagaz batu dira. Itxaropen bero bat dabe: Erromak ulertu gurako dauzala, eta ezertxogaitik be eleukee etengo Erromagaz daben lokarria».

«Ulertu eziña iake, Josuk sortutako Eleizan olako auzi bat, ango ta emengo eleizakaz itz egin gabe, eguzki aldeko eleizakaz egon barik, eta alkar-izketa zabal eta sakon bat gotzaigo barruan diran guztiekaz izan barik erabagitzea».

«Militarren itzekaz esanda: Bearrezkoa da Erromak «berarizko legea jasotea», auzi ori aztertzeko baimena emonaz».

«Bearrezkoa izango da eliz-barruti bakotxeko artzaiñak, eleiz gizonen bizitzari dagokiozan gora-bera guztiak aztertzeko bideak billatzea. Ezkongabetasuna, gora-bera orrein arteko bat baiño ez da». «Oraindiño izan geinke siñesteko eskubidea, eta siñestu bear dogu, Gogo-Gurenak itz egiten dautsela eleizai».

«Holanda'ko Gotzaiñak urte askotako alkar izketa sakona izan dabe, mailla guztietan nai izan dabenakaz. Eleiz jatorraren jokabide betea emon dautsoe euren artzaintzari, eta Eleizearen biotz barruan dagoz».

* * *

Jainko Erria, aldi ta alde guztikoentzat irigia da; ta Erri onen barruan Suenens Kardelanaren agerpenak, ez leuke beste ondorenik ekar bear auxe baiño: BIDEZ BIDE DOAN ELEIZEAREN ITXAROPENA.

Alkarren aurka, bakoitxekerietan lotuteak, arazoak ez ulertzea eta egizko alkar-izketa ittoko leukeez, kristau alkartasuna ospatzeko.

URGOITI'TAR JOSEBAK

ORMAZA

Kantauri itxasoko arraiñ onenak, neurri guztietako ontzikoetan.

BERMEO-N
MUNDAKA-N

«Mairako erreza»
«arraiñak Ormaza»

Denda guztietan eskatu

Bermeo

Bagillaren 5'ean Urduliz'en izan giñan bermiotar talde aundi bat. Egun orretan Urduliztarrak jai bat ospatzen dabe, «Concurso de rabu» deritxona. Goizeko bedratzi t'erdietan urten gendun Bermio'tik autobus bitan: baten «Erriko lagunak» deritxoen txistulari kozkorrak, bestean gurasoak eta lagunak. Egualdiak asikeran aurpegi illuna, gero egun ederra egin euskun.

Bermiotarren kuadrille bi egozan «rabu» sariketan parte artzeko asmotan. Batek amalaugarren saria ekar eban; besteak ez eban ezer egin, esango dautsuet zergaitik.

Amar t'ertietan eldu giñan Urduliz'era. Pozgarria izan yakun angoen arrera. Autobusa gelditu ta txistulariak jo ta jo txistua. Euzko soiñu bikaiñenak biotzeraño sartzen ziran. Gure begiak orduan ikusi ebena andia zan: An alboko, solo baten amar bei inguru baziran eta ariñeketan etor ziran, bedarra utzita txistu soiñuak entzutera. Esango neuke bata baiño bestea pozago egozala entzuten, begirik kendu be ez; belarriak guztiz zabal. Txistulari gazteak naiko barre egin eben, alangorik iñoiz ezeben ikusi ta.

Angoa ikusita, lagun batek esan be egin eustan: Zaletasun au abereen artean sortu danean, zer ez da izan-go Urduliz? Erri au guztiz euskal-zalea izango da. Baton batek ikaragarrizko lana egin dau emen ba.

Eldu gara eleiz aldera ta bigarren agurra artu gendun. Pankarta andi bat agiri zan bide-zabalean: «Bien venido a Urduliz».

Eleiz ondoan naiko lagun batu giñan jai egitako. Su ta gar lapiko guztiak. Landa inguru guztia garretan agiri zan. Gure kuadrille batek ezin parte artu, ez ebien buztankirik ekarri, bertan emongo eutselakoan.

Mesa nagusia be entzun gendun. Alako mesarik ez dogu gure aldetik iñun ikusi... Ontxe latin, ontxe erdera, ontxe euskera. Jesus, a zan Krusigramie; obeto esan «erlejiñozko ensaladie».

Arratzaldeko seiretan sari-banaketa izan gendun, itz bat be ez euskeraz, guztia erderaz. «Txori Alai» koak obeto Pajaro Alegre izena artzen ba'dabe.

Alako baten urten eban «Txomin de Regato» antzeko batek. Jenteak barre, eziran konturatzen, arlote aren iñusentekeriak, euskaldunen lepotik barre egiteko zireala. Guk ezin iruntzi txotxolokeri areik, eta sarataka asi giñan aurka. Erriko batek diñosku ze: Tengan un poco de educación. Auri ikusi bear non eta Urduliz'en.

Brusa ta buruko pañelu asko agiri zan, begiak baltzituta neska modernak. Azala bada ezpadakoa, eta barrua oba ez ikusi zelakoa zan.

Agur Jaunak abestu ta etor giñan Bermio-ra. Urrengoan be joango gara Urduliz aldera, baiña uste dogu apur bat ganora geiago artu bearko dabela. Guztiz minduta urten giñan Urduliz'tik, Bizkai'ko Biotzean dagon erri polit bat ain galduta ikusiaz.

BILBAO'TAR BEGOÑE

GETARIA

Periko Lahoz Kintana-ri, biotzez

Ikusi, ta dakigunez, ze nolako arrantz kostera izan duten, aurtengo bokarta arraiketan, zerbait esan nai nuke, emen, gure illeroko berri AGUR ontan. Bigarren alea artu eta ezagutu det. Ez det ordea arrantzalien berririk ezertxo irakurri. Tamalgarri zait, jakiñik, EUSKERAZ iñork itzegin da eltzen dioten arrantzaleak, euskerazko asterokoak edo illerokoak erosi ta irakurtzen dituztelako. Zergaitik beraz, zerbait idatzi ez gai sakon eta eder ontan?

Getariko Periko Kintanakin, egun auetan elkar izketa bat izan det. Ortarako biok batean, patxaran eseri ta ardoaren sumoaz egi sakon eta mardulak irten zizkion berari, ta, galdetu nizkion erantzunak, ona emen:

—Zer derizkiok, aurtengo bokarta kostera, ona ala txarra izan aldezute?

—Kosterak, sasoi aietan ere onak eta txarrak izatenituan. Orduko arrantzak ordea, gure kantauri itxas ontan, ebiltzeko izanik itxas zabal guzikoak. Denpora aietan, ez uan bildurrik prantziko uretan arrantza egiteko. Gaur ordea, ezin, prantziko guardak beren itxas ertz guziak gordeta dauzkatelako. Aurten ere, naiz ta bokarta gutxi eldu ur aueta, baldin erreztasunak izan bagenitu, arrapatuko gendun. Bokarta ori, kanporo uretatik, prantziko itxas basterra jo oi du, ta bertan itxoin amabost egun gutxi gora bera. Une oiek izanik guretzak kostera alik eta onduen lortzeko; aurten eziña izan diagu.

—Zer diok, aurten bokarta nola etorri ez dan beste ureta. Au dek, IGER muturretik asi ta Santander-ko mutur arte?

—Arrantzaleak beti dik aitzeki. Oraingoa Urumea ta Oriako ibaiak LEJIA botatzen duala itxasora, ta orrek kalte ikaragarriak egiten dituan edo gaudek. Beste urtetan, ez dek olakorik gertatu. Aurten ordea, urtero bezela bokartak, prantziko uretatik abiatzean, onera etorri bearrian, orra nola iges egin zian itxas kanporuntz, ta galdu.

—Ala ere, ikusi degunez, beste arrai, makarela edo deitzen dioten ori arrapatu dezute. Zenbat?

—Eskerrak orreri. Makarela ori oso arrai ona dek. Ez jateko gordiñik, baizik eskabetxerako. Egosi, ta latetan sartzen ditek.

—Aurten nola bokarta gutxi egin duten eskabetxe zale oiek, makarela oso ongi ordaindu ditek. Amabi ta amalau peseta kiloko. Ezkerrak orreri, kostera ez dek orren txarra izan. Jakiña, itxas ontzi asko dagonez, batsuentzat ona eta bestentzat txarra izan dek.

—Ez ote zegok konponketarik, prantzez arrantzale oiekin?

—Konponketak... ez diat uste. Guardak, dabiltzan zaitzalleak, esan oi digute, beragaitik etzaiotela ardurik, bañon, bertako arrantzaliak keja asko ematen dutela, ta beste erremeiorik ez dutela, preso artu ta eraman barrura.

—Zuek, bi ontziren jabe zerate. Zenbat aldiz eraman zaituzte?

—Bakoitza lau aldiz edo bai. Lenengotan zigorrak etzituan ain gogorrak izan. Orain ordea, gero-ta geiago ematen ditek. Bildur ikaragarriak zauzkagu. Alto ematen dutenian, igeska abiatzen gaituk. Bereala tiroka asten dituk. Nola ordea? Jotzeko ontzia. Egunen batian, gertatuko danakin, ez nikek pentsatu ere egin nai.

—Orain, atuneta irtengo zerate. Bai alzegok itxaropenik?

—Arrantzalien etorkizuna ori dek. Beti itxaropen aundiz, itxasora irten bañon len. Gero izaten dek ordea buruko miña! Lenengo arraiketan baliatzen ba'aiz, orrek ematen dik almena ta kemena pozteko, ondoren kostera ona izan dezagun.

—Eta, prantzezak, ez aldituk ur auetan arrantzan ebiltzen?

—Ebili diok... oiek atunak arrapatzeko gure uretan, ez zaukatek bildur aundirik. Bai, igazko urtean ontzi batzuk arrapatu zizkiten, bañon, ontzi oiek ez zituan Donibane ta inguruko arrantzaleak, baizik, urritikoak. Gure areriyo aundienak, oiek, asi Donibane-tik eta Arkatxon arteko arrantzaleak dituk. Ala ere, zerbait egingo alditek agintariak. Gauzak obeki, onez kondu eta ez aserreaz.

—Ia irurogei urte dituk. Orrenbeste urtean, zenbat arrai arrapatu dek?

—Ni aitak, zortzi-bederatzi urteko eraman itxasora, ta, bien bitartean arrapatu ditugun arraitzak, ez dituk gutxi. Baita ere, bien bitarteko itxasoko aserre ta ekaitz bilgugarriak bizkarrean pasa... ala ere, oraindik bizi gaituk eta Jaungoikoari esker osasuntsu.

—Ez dek oraindik egun asko, Donostiko eguneroko izparringi batian irakurri noala, BASARRI gure lagun on, ta zuen oso maite danak, zuegatik idatzi duala zerbait.

—Bai, egia dek. Nik berari esan nizkion nere gertakizunen berri eman balizkik, izparringi guzian ez litzakek lekurik izango. Lenengo itxasoko ezbearra, beatzi urtekin gertatu zitzaigun. Gure itxas ontzia beste batek botiaz ondora. Bizirik irten genduanian, konten! Emen gora-bera guziak esateko, luzeegi izango litzakek. Geroz, 25 urtekin gure GUDA madarikatua eldu zanian, besteak bezela gudatu nituan. Nere guda lekua izanik itxas ontzi bat. Bi kañoi genizkian, ta burrukatu giñuztan gure orduko areriyo zan itxas ontzi aundi batekin. Guk, zer egingo genian... Gure bi kañoi bereala xeetuaz bestien dozenaka kañoikin? Gure ontzia botiaz ondora, su ta kiskaltzen zegoala. Berrogeita amasei gizon giñuztan ta amasei bizirik atera. Ez, oraindik ezin aztu orduko une larri ura...!

—Guda bukatu zanian, zer egin uan?

—Zer egingo giñian, itxasora joan. Lenen erosi ontzia, txikia zanez, gero beste aundiagoa. Gero bestia, ta anaien artean azkenik bi ontzi genizkan. Bi ontzi oiek ere zartu ziranian, ta ongi ordaindu, beste bi dizkiagu orain. Bat burnizkoa ta bestea zurezkoa. Bost anai geranez arrantzako, erdika gabiltzak arrantzan.

—Gaur eguneko itxas arrantza ebiltzea, ez dek sasoi artakoa bezelakoa. Ez al da ala Periko?

—Ez jauna ez. Oraingo ontzi auetan ebiltzea oso atsegingarri dek. Aurrerapen guziak zauzkatek, erreztasun guziak, ta lo egiteko ere, beste urtetako ez genizkian aurrerapenak zauzkatek. Bai, gure semeak daukaten pozgarria orixen dek. Guk beste urtetako nagikeririk eza, gure igarotako izerdirik eza, gure orduko erdi-itoak ebiltzen giñanen bildurrik eza.

—Bukatu bear dia Periko. Bañon, aurretik azkenengo galdera egin nai diat. Bera, zergaitik deitzen dizute Periko Kintana, izanik zure lenengo abizena LAHOZ...?

—Esango diat ba. Gure aitonak Antonio Kintana izena zian. Bera, karlisten guda denporan liberalakin ebillia. Zaragozakoa zanez, gudan Getariko mendiak beren menpean izanik, eta Getari erria karlistakin... guda bukatu zanian, ASKIZU ballararako baserri bateko andereño polit batekin ezkondu uan. Orrela gelditurik Getarin. Oso sonatua uan. Getariko kaia, molla berria egiteko zegonian, batera ta bestera ebilliaz, nola Madrid edo Donostiko orduko agintariekin. Erriko Juez ta beste leku askotan aginketan eta abar. Beonen alaba batekin eskondu uan nere aita Antonio Lahoz. Aitari ere deitzen Kintana; Aitona Kintana arek, itxas ontziak erosi zizkianean, «KINTANA» izena zien. Gure aurreko itxas ontziak, naiz ta izen ori ez, irugarren ontzi berria egin gendunian KINTANA jarri genian. Beraz, gaur bi ontzi zeuzkagunez, batek KINTANA ta besteak «Antonio Lahoz» zaukatek. Orregatik, ni nola naizen zazpi anai'tik zarrena, neri deitzen ziratek Periko Kintana.

—Ederki Periko. Zuek, Getarin, beti EUSKERAZ itzegin, erderazko usairik gabe, ta, nola leike orren irakurle gutxi? Bai dek Donostin asteroko ARGIA. Orain ostea, Bilboko AGUR illerokoa. Zergatik etzerate guziok ARPIDEDUN?

—Bai, erosi oi ditek semeak, bañon... oso minduak gatxeok, oraingo H dala'ta, lengo gure euskeraren kutsurik ez daukalako. Askotan, ulertu ere, ezin diagu. Euskera, gero'ta ederkiago apaindu bearrian, naastuago ikusten diagu.

Ona emen orain AGUR. Ez aztu beragaz getaria arrantzaleok, ta erosi.

OZKIN

ERRIETAKO BARRIAK

Usansolo

Erriaren aberastasuna

Ez da diruen geraberea, nik emen azaldu gura dodana.

Erri baten aberastasuna zelan edo nungo bidetik aurkitzen da? Nire ustez bere semeak zelakoak diran, alan bera be izango da. Bere seme artean gizon jakintsuak badira ta euren jakituria erriko gizasemean alde biurtuten bada, erri au aberatsa izango da. Eta ain jakintsuak ez badira be, baña euren buruerak eurentzat gorde barik, euren auzoetako adizkide artean agertu egiten badabez, ori be erri aberatsa izango da.

Ez ete da egia, gizaseme guztiak daukagula zerbait, zeozer, urkoari emoteko? Eta orain, neure buruari egiten neutson itauna. Ori olan bada, zergaitik galdu bear dira buruera oneik? Erantzuna, argi argiz ikusi neban Altuna Jaunak deitu ta esan euskunean. Aldizkari barri bat agertu da ta alegin apur bat eginda, albazeunkie bialdu idazlan batzuk, pozik artuko gendukez. Nire erantzun bako itaunak, badauka orain bere erantzuna. Idazlan oneitan agertuko doguz gure buruerak, gure asmoak, ta bai ta be gure auzoetakoak.

Dei bat Usansolo ta Labeagako adizkide guztiai. Zuen asmoak, zuen burutapenak ez argitubarik utzi, gure erriaren aberastasuna gugan dago-ta, nai arlo labur baten baño ez bada be.

Amaituta neukan gorago dagoen idazkia, ezaugarrizko jazoera bat entzun nebanean, ta laburtu bearra izan da, luzeegia izan ez dadin.

Belaunikotuta eskerrak emon neutsazan Jaungoikoari, norberekeria ta gai-zalekeria baño ez diran egunotan, onelako gauzak jajazoten diralako gure euskaldun gazteen artean. Igaro dan igandean jazo zan.

Ibai ertzera eldu ziran igande goizean, Libe, gure abeslari taldeko biotzik sutsuena bere seme Jon Ander eta Jagoba'gaz. Beste batzuen artean eurekaz alkartu zan Iñaki Amarika, gure abeslari bikaiñ Mari Luz ta Nekanen nebia, uger egiteko asmoan. Zeregin onetan poz pozik dagezala, onelako baten, ikaragarrizko zurrunbillo batek eldu eutsan Jagobari, ta or daroa ondora. Au ikusi ta bere anai Jon Ander eta Iñaki laguntzera joatea, dana bat. Baña, bai estualdiagaitik edo egindako indarrak bere anai maitea bizirik atara gurean, erdi konorte barik Jon Ander geratu zan uretan. Naiko zuan Iñakik, uretatik urtetan, oneri laguntzea. Entzun irakurle, zer jazo zan onen ondoren. Entzun da esaidazu ez bada belauniko jausiteko ta Jaungoikoari eskerrak emotekoa. Erreka ertzean utzi ebanean Jagoba, -, Liben oiuak entzunda bere seme kutuna itoten egoan ta, Iñakik erantzun eutson.

—Baña ez daukat indarrik, arnasa barik nago, ta barriro uretara banoia neu be galdua izango naiz. Ta ez da ori txarrena barriz. Ez naiz gaur autortu ta oben batzuk daukadaz.

A benetako zintzotasuna. Nok entzun dau onelako autortzerik etxe ta auzoan aurrean, 16 urteko gazte baten aoan? Nok onelako sinismena?

Baña Liben oiuak geroago ta ikaragarriagoak. Bere biotza zaurituta oiu areikaz, Iñakik esan eutsan. Ez arritu Libe, nire obenak Jaungoikoak parkatuko daustaz. Banoia uretara. Edo biok urten, edo biok galduko gara. Ta ez badogu bizirik urtetan, agur danori.

Zer esan neike geiago? Estualdi onetatik urten ondoren, besarkada estu baten artu ebazan Libek mutil gazte biak. Onelako gazteak daukaguzan artean, gure erria irabazten dago, aberastuten dago. Eta jazoera onek azaldu bear diran ezkero, argitara atera; gure auzoa zorrean dago gure Iñakigaz. Zer egin leiteke? Gugan dago.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Mungia

Agur'en lenengo zenbakia abegi onagaz artua izan da, euskera errez eta gozoagaz, dana ulertzen dala; joskera ona, oso errikoia, gaurko gai geiago baleukaz oba.

Alkartasun baten bidean, alde batera itxita besteen iritxiak euskal idazkeratzaz, jarraitu daigun bide onetik.

* * *

Erriko jaiak izan dira, Pedro deunaren egunean, txistulari talde barri batek lenengoz urten eta jaiak jantzi dauskuz; amabi txitulari erritarrak izan dira, 8 urtetik 16'ra arte, eurok, zer egin leikean erakutsi dauskue, arlo bat gogotsu ta indarragaz artu ezkero; ederra izango litzake onen ondoren datozanak bide ori ikusirik, jarraitzea.

Beste ikusgarri batzuk be izan dira, pelota jokoak beti lez pelotari entzute aundikoegaz, baita ostikoketa zelaian be neska-ostikolarien arteko jokoa, onek, gauza barria izan dan ezkero, jente asko eruan eban, gero zezenak eta abar. Zabalkunde bat be izan dogu, eta gure ustez baztar berezia izango da uger-leku barria; au erritarren laguntzeagaz egin da.

Gauza guzti oneik ikusita, gure erria aurrera ete-doa? Erriko gazteak ez dabe esku artzerik izan jaiak eratuteko. Eziña ete-da jai onein barruan eurentzat egun bat eratutea?

* * *

Jon Oñatibia jaunak zuzendutako alfabetatze kanpañea amaitu da, lenengo zenbakian esan zan legez, eta orain asi da bere igaliak emoten. Montelarreina'tik albisteak datorkiguz, gudarien artean giro ederra darabillela, ikasaldi gure onetako ikasle batek sortua. Udea igarotzean barriz asiko gara euskal alfabetatzeko ikastaroagaz, euskera dakieneri sakondurik, eta ez dakienari erakutsirik. Au dala ta, zeozer entzun dogu, Bermeo'n be olako arduraren bat dagola...

* * *

Mungia, sustrai sustraitik euskalduna da, baita jatorra be, alperra baña. Ikusi daigun nungo gatxa dan au, gazte modura gure eretxia emongo dogu. Esango neuke alperkeria nagosiangandik datorrela, au da euren zintzotasuna euskaldun lez ez dabelako erakutsi, edo erakutsi bear zanean bildurtu. Parkatu! Baña bearrezkoa da eretxiak emotea.

Badaukaguz gaur, gazte jator batzuk, gaztedi aundia erabilten dakienak, baña sarritan inder berezi ori amatau egiten jakoe eurak egindako taldeak bizitasunik ez badeko, Gazteak! benetako euskaldunak bagara ezagutu daigun gure erria ta gure mendi ta baztarrak, euren bizkarrera igoaz.

GAZTE BI

Arteaga

Gorazarre edo omenaldia izan dogu Arteaga'n, Gaztelu-Elexabeti'n On Pedro abade jaunaren aldezkoa.

On Pedro gurea Dima'n jayo zan apaiza izateko, eta Arteaga'n bizi da urteetan, Kristo'ren morroi zintzo izanez erritarrai bide zuzen egiazkoak irakasteko.

Menditar artzaiñen bizikera legortea dalako, negutea gogorra, edo otsoa inguratuten danean neketsua ta latza izaten bada, On Pedro'rena ezta izan gozo-gozoa anai arteko emengo burruka zitala amaitu zanezkero.

Eliz-ezkillak tilin-talanka poza ta negarra nasturik, guda amaitu ta bake santua asi zala esaten ari ziranean, gure abadea beartua izan zan erbeste urrutirako bide luzea artzera. Eta joan zan, erriarenganako kolko bete maitasun eta gogapen laguntzat beragaz eroanik.

Aldiaren joan-etorriak gizonari dagokion askatasuna eskeiñi eutsanean, biurtu zan ba barrien barri. Arrati'ko mendi tartera, Arteaga'tar eliztarrakaz arduratzeko.

Artalderik geientxuenetan izaten dan bezela erri ontan be izan dira ardi baltz banaka batzuk, baiña onein aurka egiteak omenaldirik ez egiteko, satorkeri ta abarrek barearen ostikadak baiño indar gitxiago izan dau.

Erriko enparantzan, plazan egiterik etzan izan baimenik lortu ezin zalako, eta elizkizunak elizan eta bertsolari ta beste egitekoak eliz-lurrean eginik, asi zan baizen txukun eta ederki amaitu zan gorazarre-jaia.

Agur On Pedro: irain zar eta ain zarrak eztiranak; ondo egiñen ordezko zigor eta iseka (burla) egiteak; neke ta samiñak, guzti-guztiak ikusi dozuz ezereztuta oraingo ontan. Zeugaz dozu erria, zeugaz auzotarra. Eztozu nai izan arrokeririk, txalo ta saratarik; ixilpenean ospatzea gura izan zendun, baiña guztia izan zan alperrik. Munduan diran euskaldunak laster jakingo dabe, aldizkari onen bidez, arteagatarren barri.

Zorionak eta jarrai osasuntsu.

ANDONI

Zeanuri

Bilbo'ko urian bizi izanarren, zeanuritarra nozue. Gure erritxo au beti ondo maite izan dot, eta aurrerantz be maitatuten jarrai gura nuenke.

Neuk ikusiak emen azaltzean, errikideen batek balei esan ni enazala inungo iñor emengo zeregiñetan musturra erabilteko bizi naizan ezkero. Lotsagarria da, bai, eta egia bearen alde dau. Zergaitik ez baiña, irakurlea bera arduratu erriko txokoak astinduz barriak zabalduten? Euskaltzaleak eta Zeanuri-maitaleak bat eta bi baiño geiago gara oraindiño, eta, poz-ikutu andia izango geunka AGUR-en orrialdeetan Zeanuritzaz zerbait irakurtean.

Izan barri naz neure gogoko errian, parrokia dan elizan meza entzuten; baiña, ez-nintzan poztu ta ez asetu. Nire gaztaroan, Zeanuri'ko zar eta gazte, etxeko ta kanpoko, elizkisunetan beti aurrengo, aldi ontan barriz egi tamalgarria au da: iru-lau andrazko dira bakarrik mezari erantzunak emoten dakienak; enparauk tutik be eztabe esaten, eta arrausia egiteko ezpada, agorik zabaldu bez, askozaz gitxiago liburutxoa eskuratu.

Itaunak

Erritarron artean iñortxok ez-ete-dakigu euskeraz irakurtzen? Orrenbesteko atzerakuntzan biziteak noiz naskatuko gaitu, eta noiz gogaitu «KOKOA» entzuteagaz? Zeiñen esku dogu eliz-eziera? Non dira ainbeste ta ainbeste apaiz eta praile erri ontako semeak? Zergaitik agertzen gara nagi ta lotsati sinismendunak garenezkero? Latinezko Kredo ta Gloria ordez zergaitik ez euskerea?

Egoki litzakigu, eliztar eta apaiz, Otxarkoagan goizeko amaiketan izaten dan meza entzutea, kitanukumak ugari, eziak, gure erria baiño eun aldiz elizkoiagoak.

Elizari ta elizkizunai geiegi ikutu badautsat parkatu. AGUR-en orrialdeak zabalik doguz, bialdu erantzunak.

ANGOITIA'TAR B.

Yurre

Santalutzi

Goitar alderdi onen izena, aldien baten, Intxaurbizkar izan ei zan; gaur egun bertan dogun baseliza txukuna iragi edo jaso ebenean Santa Lucia izena artu eban (erri euskaldunarentzat Santalutzi), baiña, San Kristobal be tellatupe berean dogularik, eta onen jaia ospetsuagoa izanik, entzunagoa ta zabalduagoa da berebil (automóvil) eroatzalleen zaindariari dagokion izena, San Kristobal.

Garai ta Garamendiren ganetik, Aramotz'en barrenetik, Loiate'tik Dima'rako bidepeko auzune ontan zornontzarrak eta igorretarrak egin eben burrukaldi basatia izen andikoa izan zan. Oillar garaille arratiarrak izanik, Zornotza'ra joan ziran Karmenjaietan, ezeben izan barrura sartzerik, eta etxera biurtu ziran belarriak apaldurik. Arazo onen barri zeatzik gura dauanak, itaundu dagiola Josetxu Etxebarri'ri, urzaleri.

Lenago, orain baño txartoago, baiña azkeago bizi izan giñanean (orain, lanaren morroi, guztiok) ona joten eben auzo-errietako amonatxoak eta ama gazte askok be, umetxua besoan batzuek, eskutik bestebatzuek, belarrietako min eta oñazeetatik azke izateko.

Urtean beingo oitura zaar au makaldu egin da, jaieguna indergatu, igande eguerdietan baiña, Santalutzi'n izaten dan lako mezarik, non? Erroman bez. Gaur egunetako eleiz-giro otzak eraginda, bertakoak eztiran askok joten dabe Santalutzi'ra; emen aurkitzen dabe asetasuna, eta ementxe, bai-ta, aste guztirako barren-bakea ta nasaitasuna.

Batzar-tokia

Berebillaren (automóvil) jabe zarien gizon eta emakume, egunero zortzi edo amar ordu kate laburragaz lotuta emoten dozuezan langille-apalok, uri andietako kiratz ustelduari igesga ari zarien guraso umedunak, bai-ta, zu gallurrik-gallur aize garbiaren billa zabiltzazan mendizale kementsua; igandez naiz jaian baten Igorre'ra iritxi, elduko ba'ziña, ta gaztedi alkartuak egin dauan lan polit-polita ikusi gura ba'dozu, etzaitez aiztu Santalutzi'ko Santalutzi'gaz.

Bagillaren 27'gn, larunbatez, izan zan zabalkundea ta bateoa, eta onako jaiari dagokion aparitxoa. Edaritzat bertan jayoten dan ur garbi lerdena. Maiak inguratzen, lan egin ebenak, adizkideak, abade ta deabru, kitarra ta txistu. Guztia izan zan anaikor eta dana poz-oxin. Aurrera, gazte!

Biaramonean

Illak 28, oraindik jai-usaiña aizetan ebillala, an gengozan noizean-beingo ikusmirazaleak be. Gorospe'tar Ander izan gendun erakusle (AGUR-en arpideduna) ta gu, begiluze. Arrokeririk gabeko lan politak, arte-beso-adarrak; aizkoraz landutako txurrut-maia; areitz-lepoak; altzezko txakurtoa, errotarri t. a. Emen izan zan, bai-ta, Mallubi'tarren baserrian euskera ikasten diñardun Ortiz-Otxoa'tar Josune, neskatil liraña, bilbotarra, Ander'en kitarra jo ta abestuten ebala. Ementxe izan zan «AGUR» be, benetako euskera-maitaleak diranen adizkide egiaskoa. Arrera txeratsua izan eban, eta beraren orrialdeak ikusiz, moltsoka arpidetu ziran.

Jayotza

Begoña'k eta Santi'k, Bengoetxe'n bizi dan arratiar bikoteak, ezkontzako bigarren morroskoa izan dabe. Oraingo onek Justo Ibarra berbera (aitite) dirudi, ta, Justo'ren ezpanetan poz-andurra ugari.

Gereta'tar Mari Tere'k (arpidedun) eta Ibarra'tar Jabiertxo'k (itxasoan gudaritza geiten) alkarenganako maitasun sindoa indarbarrituteko era izan dabe. Bengoetxe'ko jayobarriaren aitabitxi izan yakuz. Umetxoaren izena; Unai.

Zorionik andienak guztioi. Zu, Jabi, itxas-urak etzaizala otzitu; eta zure biotza M. Tere, ez daitela tximurtu itxaron luzearen nekepean.

Aita eredugarria (ejemplar)

Boskotxe'ko Egileor, Lemoan bizi dana, dogu aita eredugarri au. Etxerako bidean doa gizonezko bi ta semetxoakin. Semea aurretik doa arri koskorrai ostikoka ekiñean, Alako baten semeak: «Aita: yo también quiero ir».

Semearen itzak eztabe izan soñu gozorik aitaren belarrientzat, eta onek txikiari: Seme: arren, mezedez, ezegidazu egin itz erditxo bat bera be erderaz.

Erderari gorroto? Gorrotorik, ez; norberea lenengo, bai.

AGUR-en begira dagon Aizpuru'tar Leontzio errikideari, gorantzi gizen-gizenak aldizkari egazlari enen bidez.

A. LANDAJUELA

Arrangoitz

Ikasgu aroaren burutzea emaiten ta bakantzak artzen, besta pullit eta miatugarria izan dute erri tipi berregin untan. Goizeko meza aur eta burasoentzat, baita eurrez jin dakuzan bestalierrentzat. Erri-meza eztia, Xalbador, Mattin eta Esponda pertsukantuz, apeza sutsu, erria zintzo, Jainkoari ikasgu, aur eta andereñoentzat laguntza otoika.

Onturuntza aitzineko besta eta aurren lan-erakusketa, ba zen zer ikus eta iraite aren aipapenak egitea. Bazkaritako zortzi ziriko erreak, Sara'tarra buxerra, marrauza soilaren jabe, ez zen bertze ganibetik ez sadeskarik bilakatzen, berreun bazkaldari, eun eta berrogoi bertzerik igurikatzen ez zirela, ortzzorrotzak ederki, geienek errenkuran.

Arratseko birden besta, Oldarra taldea ta soiñulari berrizaleak. Denak bozkarioz ttipi ta andi. Ikasguak, neork uste izanen ez zun zabalkundea: Ogoi ta irur aur izan dire, geurtz, ainitz emendatuko da.

Ta ardietsi duguna, Arrangoitz'eko solasetik bertze irur ikasgu berri ideki. Bata Donapaleu'n, Baiona'n birdena, erena Ziburu'n. Eta ortarako bear diren andereñoak? Neskato eskualduna, estakuru gabe eman zure izena!

Azken, zorionak buraso, andereño Libe ta laguntzaillei. Eskerrak Arrangoitz'ko iritarrei ta Auzapez jaunari. Denok zire giro berri onen egile.

LARRAUITZ'TAR IBON

Galdakano

Zerbait danetik

Gaurko egunetan, danok aguro ta lasterketa utsian gabiltzazan aldi ontan bide nagusi edo bitxabalatako gurutzeroetatik igaro bearrak, bai oñez ta bai berebillez, arrizgu andiak dakartzala iñork ezin leuskigu ukatu, batezbere aurrenengo bitzabalan gurutzeroak diranian, bertatik dabiltzan berebil ta tramankulurik geienak abiada andiaz dabiltzalako. Orregaitik, arrizgu arreik pizkabat uxatutearren argi-zaupide (semaforoak) jarten dira urietan, ta bai garrantziko gurutzero askotan bere, uriburu inguruetan beintzat.

Gurutzero bat baño geiago dogu gure erri ontan, batezbere erri-barruko gurutzero nagusia, bertan batuten diralako bost bide; Bilbo'tik Donostia'rakua, Galdakano'tik Basauri'rakua ta erriko eleiza nagusi ingurutik esandako toki ortara jatsiten dana; guztiak ta batezbere lenengo laurak, berebil asko dabiltzanak izanik arrizgu ikeragarria dago bertatik igaroteko, eta orretara erakutsiten emon dausku ainbat bider bertan izan diran berebillen tope-tope gogorrak, zorionez erijotzarik izan ezpa-da be. Baña, bildur giñan egunen baten ezbear negargarriren bat ikusi bear ete genduban, aspaldiz ipinteko ziran argizaupideak ipiñi baiño leen.

Gorago esan doguna dala-ta, gertu gengozan zerbait gogor idatziteko ta, ara non, lerro oneek idatziten asi garan aldi ontan, asiak diran argi orreek ipinteko zuluak ta beste gertakizunak egiten, aitatu dogun gurutzeroan eta ez emen bakarrik, Urgoiti (El Gallo)ko gurutzero ta Abusu'n be ipiñiko ei-dabez. Ea ba jaunak! bear-bearrekuak ziran argi-zaupide orreek eta, iñoiz-be ezta berandu egoki ba-datoz.

* * *

Igaro genduan Bagilla'n azken aldian, seme eder bat, sendiko laugarren mutilla, izan dabe Basaldua'tar Iñaki ta Arrieta'tar Miren senar-emazte gazte euskaltzaleak ta, beraz, AGUR'en irakurle azkarrak. Eta, zelango mutil ederrak leengo irurak?, eztago esan bearrik, oraingua be bardiña izan dala. Gure zorionik beroenak Iñaki ta Miren adizkideak, eta osasunik onena izango aal-dozube mutil jator batzuk azi ta benetako euskotarrak legez eziteko eurak.

BASA-JAUN

Gaur, «batasun» itza edonork. Itza, ederra berez. Zure ustez, zer da batasuna, euskerari eta Euskal-erriari buruz bear gendukena?

Bekozkoa illunduko dit askotxok lenbiziko itzetik. Baiña, ezer balioko al luke nere esanbear guztiak, barrenak agintzen didan-ura ixilik gordetzekotan?

Bi aldetara artu ditezken itzak, eztira nolanai ibiltzekoak. Pentsatzen jarri besterik eztaukagu, ea zenbat istillu ta txarkeri ekarri duten, mundua mundu danetik, arpegi-biko itz sorgin batzuek. Beiñolako bertsolari lapurtarraren ateraldia datorkit burura:

«Liberté, Egalité eta Fraternité...
hiru gezur pollit hoik egia balite!...»

Eztiruditelazko tresna-makur oekin, ba du, nerekiko, alako zer-ikusi pixka bat, bolara-aldi ontan gaillenegi dabilkigun «batasun» itz orrek... Eta, nik zer esatea nai dezu? Eztet pittin bat ere maite.

Oraindik-oraintsu adiskide mami ziran lagun bi, elkar ikusi-eziñik dabiltza gaur, tiot nere buruari euskaldunago baizik iritzi, beste edozein euskal-erritako jendeen artean: Bizkaiko, Naparroako, naiz Lapurdiko...: ziran alderdiko zirala. Euskerazko nere liburu ta kanta-paperetan ere berdin. Baita, nere ezjakiñagatik bataren edo bestearen itzak nai bezin garbi aditzeko gauza ez nintzanean ere. Non-nai billatzen nizun ikasteko zerbait berri, eta are ezagunago agertzen zitzaidan beti gure Erriaren berezko izatea.

Benetan diot, eta sinista nazazu: beste iñungo euskal-izkera guztiak arras izkutaturik, giputz-euskera nerea soil-soillik entzutera edo irakurtzera iritxi bear banu egunen batean... giputz - euskaldunok kale - gorrian umezurtz gelditu giñala irudituko litzaiket.

Nere iritzia bear badezu, ona beraz emen zabal-zabal aitortu, zein izango litzaken neretzat, besteak beste, *aitzaki-gabeko Bat-tasun* bat:

Euskaldun guztiok, bakoitzak bere aurrekoen bide jatorrari eutsiz, eta besterenak aintzakotzat artuz, Izkuntzarekin Erritasuna zaintzen eta sendotzen, erak dakarren gisa, elkarri laguntzea.

Orrenbestez ba duala uste det, aditzaille onak, bear-ainbat argibide, zure galderari zer geiago erantzungo nioken antz-emateko.

Baiña, tira!... Gizonentzako egiñak bear dute izan legeak; eta irakurleari nekea arintzera datozenak, ongi-etorri dirala! (Neke geiago ematera letozkenak, ez noski!)

Euskaldunari irakurtzen laguntzea da, gaur gaur bezela, ortografiaren egitekoa: a) *Euskaldunari:* bere seaskako euskera bizi-bizi daukanari, beste guztien aurretik; eta zenbaitek uste baiño euskeraz irakurri-zaleago danari. b) *Irakurtzen laguntzeko:* ez begiak zoratzeko... Bai pozik ekarriko nizkitzukela emen begien aurrera, Vendryes-en eta Rene Lafon-en itz mamitsu batzuk nere esanaren euskarri! Baiña geiegi luzatzen ari naiz, bat eta beste. Bego ortan kontua, orain beintzat.

H-rekiko auziaz, itz gutxi. Letra au noiznola erabilli, leen esan dedan bezela, bestek aiñean asmatuko nuke, zalaparta aundirik gabe. Baita aresti ontan oker sartu edo kendu diranak nola zuzendu ere. Baiña ori ezta kontua. Mugaz beste aldeko euskeretan bearbearrezkoa dute, gutxi-asko bere soiñuduna dutelako. Emengoetan, betegarri utsa da geienetan; eta naaspilla, lanbidea ta zeresana jartzera etorria. Nere lanean, millaka dituzu H-dun itzak: bakoitzaren «jabeak» bear zituen-ainbat: ez bat gutxiago, ez bat ere geiago. Nori berea, ez da zuzenbidea?

Euskera batua ta euskalkiak alkarregaz irauterik bai al dabe? Garbizalekeria ta mordollokeria: zein da erdiko bidea? Arantzazun esanak ezagutzen badituzu, aintzat artu-bearrekoak al dira? Gure erriari ezarri nai yakon au, zer deritxazu?

Adiskidea: beste askori bezela, neri ere oker jo izan dit kukuak bein baiño geiagotan; eta ez nuke naiko profeta-itxurak egiten iñoren aurrean ibilli. Maisu, berriz, garbi aitortu dizut asieratik, banakazko gauza batzuetan baizik ez naizela titulo-dun maisu. Oraingo galdera-sail oni zail-samar derizkiot, itz gutxitan erantzuteko; eta albait laburren esatea dagokit esateko dana. Ba dakizu: geiegiak gaiñez egiten du, eta gaiñez eragiten. Utsegiteko beldur aundiz bederen, itz bat edo beste erastea izango det beraz egokien, leen erdiesanik utziari.

«Zertan izan gaitezke bat, eta zertan ez?... Zertan daukagu bat izan bearra, eta zertan ez?» Ortan dago, nerekiko, kurpillaren ardatza, eta auzi guztiaren korapilloa. Erriari begira gaudela, *nola erantzuteko* agintzen digu gure artean orrenbeste indar?... Ea nola gabiltzan, gaur bertan, ori baiño joan-etorri aundiagoko arazo batzuetan, Eliza batean bataiatuok, zeiñek zer agintzeko eskubide duan galdezka, ta garbi ikusi artean amorr-eman eziñik?...

Bearrik ere, Euskaltzaindi gureaz, ezta orrelako uka-mukarik. Danok dakigu, nai eztuenari agintzeko sortua eztala: euskerari oso ta bizi irauten laguntzeko baizik; eta argibilla dijoakionari burubide emateko. Onezonean. Zorrozkeri gabe. Eta besterik ezin balitz, nor bere buruaren jabe gelditzekotan, eta nor bere eskuko. Bestela zer, «gogorrena alkate» ta «Ni naiz kapitan Pilotu»?

Liturji-batasunari buruz esango zenduke zerbait?

Auxe bakar-bakarrik: orain baiño leen, bear zan tokian, eta nere itzak beren argibide guztiakin paperean ezarrita, asko ta asko zezakean jaun aundi bati esanik utzi niona.

Oso axaletik, edo barrenegitik begiratzen dionarentzat baizik *eztala bat* Euskal-erria izkuntzari buruz ere. Beraz, eliztarren izkuntzan egin bear baziran Elizako lanak, euskalki nagusienai bederen zabaltxeago utzi bear zitzaiokeala bere bidea, beste euskaldun guztiekiko artu-emanaz aaztu gabetanik ere.

Agintzen duenak ordea eztizu erregutzen. Eta ixil-ixilik entzun bear izan nizun gizajo onek jaun aundiaren erantzuna, orain emen argitara ekartzekoa etzana. Gure eliz-artzazintzoak, berak asmatu bearko dute, geroztik, nolatan lagundu beren artalde gaixoari Jainkoaren Itza *adi-erazten*...

AGUR aldiakari au ataratzea begiko al yatzu? Idazle gazteoi zer bide emongo zeuskigu? Gazteen ezitzalle zaitugu: zer gareala uste dozu? Euskararen etorkizunari buruz, baikor?

Ume berriarekin etorri zeranean, zerorrek igarri diozu zer nolako poz-dardara eragin didan barren guztitik, aurraren arpegia ikuste utsak. Orain berrogei ta amar urtetsu Donostian jaiotako «Argia» zetorkidala gogora, esan dizut; eta «Argia»-ren jaiotzak aspaldi artan

AITA MOKOROA-RI

Zer izan dute batak-bestearekin? Utsaren antzeko zerbait: gogoan ezer txarrik gabe, nork bere aldera artzen asitako itz ezerez bat. Ez omen zuten artean besterik, eztabaida ta naaspilla sortu zutenean. Gero bai, inpernuko etsaiak lagunduz, bakoitzak bere temari gogor eldu zion; arrazoi txarretara etorri ziran; eta zein zeiñago agertzearren nonbait, zeiñek baiño zeiñek gorago altxa-bearra, oiua ta ukabilla. —Azkenean, iñor tartean pakeak egiñaztera sartu ezik, «gogorrena alkate»; eta biotzetan gorrotoa nagusi. Itz sorgin baten lanak!— Nork eztu olako zerbaiten berri, mundu zabalean?

Batasun orretarako laguntzarik bai, zure lanak?

Geiegi esateak eztu ondo ematen; ni ez naiz nor auzi oetan maisutzarik egiteko; eta ezereregatik ez nioke euskaltzale bakar bati bide gaiztoko miñik eman nai. Baiña, esatera noana esateko-beste, edozeiñek du naikoa eskubide. *Batasuna gora* ta *batasuna beera*, nork-bere ta besteren zaiñak piztutzen ele-melean jardun baiño, berreun aldiz obe genduke, pake onean, zentzuz eta gizabidez, elkarri aitortu..., euskaldunok geure Euskerarekin, *zertan izan gaitezken bat, eta zertan ez; zertan daukagun*, Euskalerriaren izenean, *bat izan bearra... baiña zertan ez.*

Pake onean!... Etzuan iñolako gerra-zantzurik Zalduby apaiz senpertarraren errepika bero ark: «Zazpi Eskual-herriek *bat egin* dezagun; guziek bethi bethi *gauden gu Eskualdun!*» Erriaren anima ta bizia zituan apaiz ark gogoan. Gure buru-biotzetan elkartasun-billa ziñez lan egin nai duen euskaltzaleak ere ez luke gerra-soiñurik atera bear, dabillen lekuan.

Zu ta ni euskaldunak gera. Euskeraz diardugu elkarrekin, zuk zeure erara, nik neurera, bakoitzak amaren magaletik ikasi degun erara. Bizkaiko semea zu, ta giputza ni. Itzak eta esaerak beti berdiñak ez izanagatik, izketan aste utsaz-bat piztu da gure barrenean, biok Erri *bat*-en ume geralako ezaguera. Eta, esker-txarreko umeak ez geralako, ezaguera ori piztu ez ezik, baita sutu ere egin zaigu, *bion Ama*-ren alde elkarrekin lan egiteko gogoa.

Zer ajola digu zuri ta neri, batak «*gura dogu*» esaten duala, eta besteak «*nai degu?...*» Ez al giñan berdin piztuko ta sutuko ere, baldin gure alboko irugarren bati «*nahi dugu*» esaten sumatu bagenio? Izatez ere, piztuago-ko ta sutuago-ko! Ezta ala?

Eta iruetako zeiñek bearko zien beste biai amorr-eman, euskera berea aldebat utziz besteakin «*bat*»-*ago* izatearren? -Amorr-eman? Galdetzeak berak miñ ematen dit biotzean. Zuri ez?... Adiñetara eldu nintzan ezkeroztik, ezta neretzat, berez, «bestea baiño euskerago dan euskerarik». Zenbat izan omen dira, «elkar-bat» egin nairik, bata-bestearen leian ibillitako euskal-erriak? Iru?... Lau?... Zazpi?... Sei?... Berrogei izan balira obe, eta egi-egietan ibilliak! Etzaizu iruditzen?

Ortik zear ibilli naizen toki guztietan, ezin Nor bere gauzetaz lausotua egotea ez litzake mirari; eta, obe izango dezu, jakiñaren gaiñean itzegin lezakenen bati eskatu, galdera orren erantzuna.

Baiña, lauso guztiak lauso, zuk eta nik onezkero bestek aiñean ba dakigu, berezko euskera bezelakorik eztala, non-naiko euskaldun garbiak, azalez *bana* izanagatik ere, zain-zaiñetik *BAT* dirala adirazteko. Leen esandako bat-tasun orren lagungarri izan bear beraz, nolabait ere, nik bildu dedan bezela bildutako esaera-pilla.

Elkarren ezagutzaz erreztuko zala esan nuan orain ogei ta amalau urte, gure euskalki guztien elkarrenganako bidea. *Ibar*-en liburua irakurri nai duanak, atzen-aldeko orrietan begiratzea dauka, garai artako erara zer esan zan. Nik eztet beste biderik sumatzen; eta emen nator orain nere bide ortako berri ematera, esaera oen bitartez.

Ortografi, idazkera barrutugurean diarduenen lana zelako begiz ikusten? Sortu dan bitasungiro onetan, norantz? Zure lana H'gaz ala gabe?

Neronek bota nion, bear-bada, lenbiziko 1936-gn urteko San Pedro-bezperan jaiotako liburutik. Kolpe artatik galdu ote zan *r gangarduna?* Eztakit erantzuten. Zutik daude beiñipein *x* eta *tx;* eta naiago det, beste aitzakiren bat izango zuala sinistu. Nere garbitasunak, liburuaren 247-gn orrialdean ikusi ditezke, eta leengo indarrean daude gaur ere, orduko itzak. Baiña, liburutxo aren aita, Igarle izan balitz, eta illabete-garreneko sortu bear zutenen berri jakin, etzukean gaur, obeustez egindako okerraren damurik... Ez alafede! Gauza batzuk bi aldiz egin al balitez!...

Orain ordea zer? Leen gauza onik egin ezpalitz bezela, dana zuztarretik berritzera, datorrena betor?... Oraindik-oraindaiñokoan, maisu-artuengandik ikasten genduan idazten, dakigun puxka, euskaldunik geienok: irakurriaren irakurriz; geroxeago gramatikaz zerbait jabetzen asi bitartean. Beste eskolarik etzan izaten emen. Orain bai, ba ditugu, ez gutxi; ta ez beti-beti aitak eta amak nai duten bide jakiñetik umeak eramateko jarriak.

Euskaldun-begiz eta belarriz ondo jantzia baldin bada irakaslea, eztet uste lanbide aundia zuanik iñorentzat oraindaiñoko idazkera gureak. (Zuen AGUR-ekoak, esate baterako). Euskaldun baiño erdaldunago danean, orduan bai lanak...! edozein idazkerarekin ere!

ITAUNKETA (II)

barrenak, galdera oeri?... Barrenak agintzen diguna *elkarri aitortu,* erriari begira jarrita! Au dala uste det gure aurrenengo eginkizuna. Eta ori erabaki bitartean beintzat, zer? «Nork geure aurrekoen bide jakiñari zintzo eusten saiatu, beste euskaldun guztienak aintzakotzat artuz». Bizkaitarrok, zuen Bizkai-euskera mardula, erria begitik utzi gabe, landu, edertu, gaiagotu, bakoitzak aal duen neurri onean, eta eskoletako umeai ori bera egiten erakutsi. Guk giputzok, eta gaiñerontzeko beste guztiok, era berean berdin, nork-geurea zaindu, nork-geurea jantzi. Bata-besteagan dik zerbait ikasiz beti, eta elkarganako bideak zabalduz; baiña ez-arian bezela, kontu aundiz. *Erriari begira!*

Zein erriri?... Liburu ta albistarietan mokoa azaltzen degunok, *gu nor izan bagiña,* onezkero pozez beterik adi-adi euki bear gendun *euskaldun-jende, euskeraz bizi danari!* Ala zer! Beren bururakizunak paperetara bialtzeko erarik, edo betarik, edo esturasunik, edo... bekokirik eztuten euskaldunak eztira euskal-erri?

Ori ez egitetik, eta berezko euskal-izkerak galga batez gorago berdindu nai izatetik, eztator nastea ta pake-txarra besterik. Edo ta, «euskera-batu» bakar baten ordez, «zenbat buru, ainbeste euskera-nastu» sortzea, idazleak berak oartzen ezpadira ere. Begirik ez al degu, orrenbeste ikusteko?

Gauzak berez dakarrena da, eta iñongo agintarik edo legejartzaillek, indar gogorrean baizik atzerazi eztezakena. Ta, nork luke sortutako poza berritzen zidala biotzean, zuen AGUR onen etorrerak.

Ordukoa baiño aundiagoa zala esan bear nizun, oraingo poza. Asteroko maite aren antzera, udaberriko arnasa dakar zuen illerokoak ere; baiña «Argia»-k ez bezelakoa AGUR-ek. Bizi ezezik, gaurko aldean sendo zegoen giputz-euskeraren loratzea izan zan gure begietan «Argia». Urte luzeetan erdi-illa bezela ikusten gendun bizkai-euskeraren ernaitzea ta piz-berritzea izango da askorenzat AGUR. Eta zer nolako ernaitzea ta piz-berritzea? Begien aurrean ikusi arte, gertatu zitekeanik buruak emango etzidan bezelakoa. Eztet uste, aspaldiko urteetan beste ezerk onela berotu duanik nere biotzeko labea.

Bizkai-euskera bizi-bizirik dagoala dedar egitera zatozte, eta aurrekoen bidea ukatu gabe beti euskaldun izan naieko gazteak zeratela Euskal-erriari aitortzera. Neretzat ezta zaar-gazterik, Euskal-erria buruta ateratzeko aalegiñean: gazterik gabean, ez litzake geiago Euskal-erririk; gazte utsena ez litzake geiago Euskal-erri. Gurasoengandik artzen asitako euskaltasunak ondorengoetan bizirik eta sendorik iraungo badu, zuena dala uste det bidea, edo etzabiltzatela bidetik urruti. Zuek bizi zeraten bitartean iraungo du beintzat, eta bai geroagoan ere zuen arnasaren esker. Euskaldun guztion txaloak merezi dituzute. Abeak on dizuela! Jo ortik urte askoan.

GARITAONANDIA'TAR GOTZON

AGUR

ILLEROKOA
4 ZENBAKIA

1970 - DAGONILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

DILIN DALAN:

EUSKAL ERRIETAN; JAIAK UDAN

Gure poema nagusia, Euskaldunak, Orixe-k egin ebanean, olerkari begiz ikusten dau Euskal Erria. Olako begikeraz, eten bako jai bat dogu urte osoa, gure Errian. Jaiak: San Mikeletan, gaztañatoan, txarri-iltzean, gabonetan, iñauteriz, artajorran eta bedarrerakoan, jai amonaren eriotzan be: iiz baten, beti.

Egi galanta da: euskalduna, umoreduna; naiz ta, erdaldunak bestera uste izan.

Euskal Erria, naiz ta askok bestera pentsa, gainbera yoaku. Goragoko mailla baten ezagutu neban onek, amaika jai eder ikusi, bizi ta egin dodaz. Urte guztia alako jai usaiñez jantzi dauan euskaldunak, udaldia izan dau begikoen. Uda jai-egunez betea; gaur emen eta biar an. Doneibanetik, Jaun done Mikel egunera, ete da erririk jai egunen bat ez dauanik? Zerutar baten izena aitxakitzat artu eta egurra. Bildots edo aume bat il, «...naiz aberatsetan, bardin pobrietan, jan-edanen faltarik ez da etxietan, naiz ta eskaz ibilli beste egunetan» (Enbeitak, Ariatzako jaiei).

Gizaldietan zear au onela izan da: jaietan betekada, dantzaldia, senideen batzarra. Musaldi luzeak, maats-aienen kerizpean, sagardo pitxarkada mai gaiñean.

Bizitza olerkitsu onenak, egin dau. Ez gaur olerki gairik ez dogulako, olerkirako begiak lauzoturik doguzalako baiño. Ez gendun bear zan bestean estimau, gatxik ez dauan bizikera ori.

Banan-zaleak bagiñan, baiña batzar-zaleak izatea be aintziñatik agertu dogu: auzo-lan eta olakoetan oraindiño be agiri. Baiña erbesteko aizeak zorabiatu ginduzan; geureak ziran erak alboratzeko. Taldean barik banan jokatzera jarri giñan. Gudak asko banandu, ta alkarrenganako geunkan uste-ona beragaz galdu. Erri basoak saldu. Etxeko soloetan piñuak sartu. Gure etxean nagusi giñeanak, iñoren lantegiko morroi biurtu. Biotz poztasuna, urritu.

Orain jai gitxi doguz, geure jaitzat artu geinkezanak. Bildur naz, atzerritarren antzera, gu be, bakoitza gure txikitoa ordaintzen asiko ete garean...

Erriko jaietan ez dogu meza nagusirik, ez euskal ikusgarririk. Leen an batzen giñan, senitarteko ta auzokoak. Jai batek alkartu egiten ginduzan. Orain, «alienaziño» baten izenean, geure danari boikot egin bearra dogun garai onetan, alkartasunerako bide bat utzi dogu. Gure jaiak ez dira geureak, erbestetar udazaleak datorkuz geure errien jaube egitera. Erbestekoak artu genduzan maixutzat; geure etxean maizter geratu gara. Ugazaba-pean, geure buruen jabe ez gara.

Baiña gau onetan ez al dogu izarrik? Baiña, Agur, zetan zatoz gure jaiak mingoztera? Neuretzuok, badira bai izarrak, eta «milla ta milla izango dire...» orduan. Bidez bide joan, eta an gure jaitokietan ikusko dozuez, gazteak, ez asko, bai naiko. Berba-lapikoak izan barik, fiñean jokatzen dakienak; batzuetan euzko jantziz, iñoiz gona motzez be bai. Azala da gitxienekoa, mamiñez baiña Aitorren semealabak dozuez. Euren izkuntza bakarra, euskera, abestiak geutarrak. Jaietara alkarregaz joan, gero jolaz batera, an. Bazkaldu lurrean biribillean, eta beti modurik onenean. Orreik doguz geure landara barriak, orreik emoten dautsoe benetako antza jaieri. Euskalduntzat zagozan ori, zu be opor egunetan zara onezkero. Andra Mari-tan, Bilbon ta edonun jaiak. Ikastolak itxita; langilleak etxean euren amabosta laburra gozatzen. Itsaz ertzera zoazala, nai baserrietara, edonora: euskalduń izaten ikasi daigun. Euskaldunik onenak dagozan errietara goaz askotan, lotza barik erdera egiten; eurei barre egiten be bai. Baserritarra izango da gurean bakarra, opor egun barik. Merezi badabe ba. Eskarrak euren plazaeguna ta feri-eguna dabezena. Ez gaiten joan arroskeriz errietara, jaietara, euskaldunen artera. Agertu gaiten euskaldun.

Atzo etorri dira gure umeak etxera, Aitzol eta Garazi. Oparrak emon dautsoez eta andereñoak, azkena emoteko au esan ei dautse: Opor egunak ondo igaro. Orretarako gogoan izan au beti. Gau guztietan pozik lo egin gura ba'dozue, alegindu egun guztietan, zeuekaz dabillen bat poztuten. Biotz bat pozten dauanak, bere biotza poztuko.

Euskal erri askotan ez dago jairik, egin be ezin. Umorea ta maitasuna galdu dira ta. Euskal sendi asko atsekabean. Askok ez dabe ondartzara joaterik, gau ta egun kerizpetan. Sendi asko banaturik; osasun barik edo lagunik gabe. Biotz bat poztu al ba neu? Orrexetan nator gaur zure etxera, opor egunetan. Poztuko al zaitut.

Nun bizi gera?



Euskaltzaindiak, negargarrizko gertaera bat eskeñi digu bere Uztailleko azkenengo batzarrean: euskal-langille purrukatua dan Lekuona'tar Manuel, apaiz jauna, bere lendakari-aulkitik bota digute!

Ez aren urteeri, ta ez aren maixutza paketsuari gorde diote begirapen tantarik. Asko erori gera giza-mailletan bera, gure izkuntzaren gordaillu orain arte izan dan elkarte orren jakoeran.

Zergatik izan da guzia?

Lekuona adiskideak burrukarik nai izan ez dualako. Iñori «*ez*» esateko balorerik izan ez dualako, noski. Arantzazun, «amen» erantzun zien «h» zaleei. Gazte batzuek baiña, beren «txupatxus» ori, berealako batean bear zuten; eta don Manuel'ek zentzu aundiz, astia eskatu zigun, ezer aurrera eramateko. Luzapenak jendia erdi-aldera erakarriko zuala, uste baitzuan, eta itxoiteko eskatu zigun. Orratx pekatua! Utsa «*ezetz*» biribilla betiko eman izan baligu... Ori naikoa izan da bide, don Manuel'en bizi guziko lanari esker txar au eskeintzeko.

Nortzuk egin dute lan ori?

Egiteko lotsagarri ori antolatu duten gazteak, gauzarik utsenean kontra egiten zaienean, «inkisizioa» ta «inperialismoa» aotan artzen dizue bereala. Oiek izan ditugu, jokaera lotsagarri ori prestatu dutenak «xuabe-xuabe». Baiña BOTOAK, —eta au da guretzat berria— gazteei «eskua pasatzen» ari diran «ZAR» batzuek eman dituzte. Eta boto oien bidez eman diote «ostikoa» don Manuel'i.

Guk orrelakorik ez genduan amesik ere egiten. Orregatik, ez gera azpijorran ibilli, botoak nundik inguratuko. Gu Linbotik atera gaituzte orrekin. Baiña bildur gera, guk baiño azken tristeagoa izango dutela, gazte oiei laguntzen ari diran «zarrok». Badakizue: «Otarra bat egiten duanak, eun ere egin ditzake» aukera ematen badiote. Ta asi zaitezte zerbaitetan gazte oiei kontra egiten. Ikusiko dezue nolako eskerrak ematen dizkitzueten, zuen loxinkeri ta guzti.

Nola egin dute beren lana?

Amaika aldiz etorri zaizkigu asarre: Zergaitik jarri dezu ori Z. A'n?... Ori etzan jarri bear... Kontu alako jarri!...

Ba, oraingoan, zabal-zabal eman dute «ostiko» lotsagarri orren berri. Ta ori naikoa etzala, batek eta besteak ZENBAT BOTO izan dituan ere, «iñuxenteiñuxente» jarri digute. Orrela agiriago gelditzen baitzan don Manuel'i eman dioten «matraillekoa».

Bein ere gertatu etzana

Euskaltzaindiaren berrogei ta amar urtetan, izan da eztabaida pranko euskaltzaiñen artean. Azkue eta abertzaleak izan zituzten iritzi elkar jokakoak: r gallurduna eta l gallurdunaren ika-mika luzetan. Azkue'k s ta ts gallurdunak obesten zitualarik, eta besteak x ta tx gogozko zituztelarik... eta abar, eta abar. Ala ere, ez Azkue'ri ta ez Etxaide'ri ta beste iñoizko lendakariari kendu zioten bere nagusi-aulkirik.

Azpijanaren «demokraziak» ekarri digu etxera, beste lurraldetan duan esku ederra, sator lana egiñaz, erri osoak bere agintepean lotzeko.

Don Manuel! Zurekin gaude! Ta zurekin dezu, zentzua galdu ez duan Euskalerria!

Etxaniz'tar Nemesio

M. LEKUONA JAUNA BOTA DABE

(Izkuntz iraultzalleen naia lortzen asi da)

Donostian, uztaillaren ogeta bederatzi garrenean aspaldian asmau ta egosten zegoan azpijokoak bere frutuak emon ditu. Manuel Lekuona Jauna egizko erri jakituriz ezia ta euskeraren alde bere bizitza osoa emondako Jaun agurgarria, Euskaltzaindiko lendakaritzatik bota dabe. Olantxe esan bear dogu, bota dabe.

Baña, zelan? oitura dan lez? Beste lendakariak bere orrela aldatu dira? Bai zera!

Azkue, Etxaide, ta Oleaga Jaunak (G. B.) bizi izan ziran bitartean iraun zuten lendakaritzan, gaurko giro baltzik ez zegoan eta... baña Lekuona Jauna izkuntz-sasi-iraultzalleentzat oztopoa zan eta kentzea erabaki zuten, zelan? Demokratzia bidez, jakiña!

Orain bost edo sei illabete argi ikusi genduan guk azpijokoa; idazkari Jaunak dimitidu zun jokoari bidea zabaltzeko; gerorako itxi zan dimisio kontua ta aitzakitzat arturik, idazkaritzagaz batera kargu guztiak berriztatzea erabaki zuten euskaltzain osoak. Epe laburra izan arren ez dira Lekuona Jaunaren etsaiak lotan izan. An eta emen, azpijana noizik bein, guzurra beste batzuetan eta batez be, mugaz andiko euskaldunen tartean, maltzurkeria, erdi guzurrak edo erdi egiak ugari erabili dituzte.

Illaren ogetamasei garrenean, Euskaltzaindiko batzarra ta autezkundea baño iru egun lenago, zortzi orri aleko izenpebako edo «anonimoa» artu gendun euskaltzain guztiok, orri ale orreik D. Manuelen aurka idatziak baña izenpetzeko aña gizontasun barik egiñak. Izan bere kultura gaietako iraultzalleak miiñez lelengo mallan baña ekintzan ...atzetik edo azpitik, sapoak edo satorraren antzera dabiltz. Gero gertaua danok dakizue; D. Manuel lendakaritzatik kendua izan da, San Martin Jauna ostera berriz izendatua.

Eta orain, zer? Guk, Jaunak, lengoan jarraituko dogu, baña bear bada mingaña askeago izango dogu egia esateko ta azpijokoa azaltzeko.

Aita Villasanteri zorionak eta oar bat: otsoak erpeak erakutsi ditu ta otsoa, gose danean, gaizki dabillenean, bere umeak edo bere gurazoak jaten ditu eta otso aundiegia sartu jako Euskaltzaindiari barru-barruan.

D. Manuelen lepora bota dituzten guzur ta zalantza guztiak otso orrek, berak, darabiltz. Alderdikeri edo taldekerietan nor ete dabil? Gaur edozeiñek daki zelan Euskaltzaindiaren jabetasuna lortu arte ara ta ona ibili dan otsoa zelakoa izan dan, zelako ideolojia dakarren eta zelako elburuak dituan.

Kontuz ba otso orrekin! Gu arretaz gaude ta gu iruntzi naian badator baliteke gure azur gogor ta azal arantzaduna iztarrian katigetuta geratzea.

Agur'etik agur.

Arenaza'k

GAZTELAKO ZELAITIK

Gaztelako zelaitik
Begiak begira
Laiño zuri bateri
Galdezka asi dira:

Zer barri gure etxean?
Andik zer barri da?
Ama ikusten, laister
Naiz Euskalerrira.

Atzo gure etxean
Ume bat jaio da
Aitaren izenakin
Bataiatuko da

Gure lege zarrian
Ezia izango da:
Fededun ta Euskaldun
Beti biziko da.

OXINONDOKO TXORIA

EUSKERE A

ERA ASKOTARA

Euskera il ez dedin eta gaur baño indar geiago ar dezan, euskera batua bearrezkoa dala ia euskaldun guztiak diote ta elburu ori irixten saiatzen ari dira batzuek.

Beste izkuntzei ta ziurrak ez diran gauza guztiei gertatzen zaien bezela, zorioneko euskera batua ere, noski, era askotara izan diteke, bide asko aukera ditezke.

Au orrela izanik, euskal-idazle ta euskal-jakintsuak iritzi ezberdiñak izatea ez da arritzeko gauza. Orretzaz gañera, beste era batera izango balitz gutxi iritxiko genukela pentsatzen dut. Nere ustez, arazoen bat izaten danero, geiago dakitenen pentsakera ta arrazoi ezberdiñak ezagutu bear ditugu gutxigo dakigunok, iritzi guztietatik onena deritzaguna aukera aal izan dezagun.

Bañan orain arte ikusi dudanez, gauzak okertu dira, bakoitzak besteekin zerikusirik izan nai gabe bere bidea artu duelako. Bai batzuek eta bai besteak, aiek bezela pentsatzen ez dutenak bere iritziak indarrez sartu nai dituztela esaten dute.

Ez nintzake au orrela dan ala ez dan esaten ausartuko, bañan bai, askok orrela izango balitz bezela jokatzen dutela. Eta baita ere, orrela jarraitzen ba dugu, ez dala ezer egingo.

Leendik aldizkari batzuek ez dituzte h'rik gabe idazten dituztenen lantxoak argitaratzen edo h'ak berak ipintzen dizkiete. Gero, orrela jokatzen dutenekin konforme ez dagozenetako batzuek ere bide bakarrari ekin diote, besteak baztertuaz. Eta batzuek naiz besteak demokraziaren izenean.

Bañan ori ote da benetako demokrazia?

Pentsakera batekoentzat, bere era euskal-idazle ta euskal-jakintsu geienena da, bañan, nere ustez, ori erabaki dutenetako iñor erriak aukeratakoa ez izanik, egin dituzten billeratara aiek bezela pentsatzen dutenak bakarrik joan dirala, erritarrak arazo oneri buruz bere iritziak eman ez dituztela, eta abar aazten dute.

Bestekoentzat, euskera batua nola izango dan erriak aukeratu bear du. Au benetan izango balitz, ontzat artuko nuke, bañan ez dut orrelakorik izango danik uste. Zergaitik? Nere ustez, demokrazia-bidea ez batzuenak, guztien iritziak baizik entzutean datzalako eta guztiei entzun nai ez dietenak ez dute nai erritar batzuen pensakera jakin dedin. Auek euskera batua erriak aukeratuko duela esaten dute, bañan gero erria guztiok osatzen dugula aazten dute.

Gure erriak biziro maite izan du beti demokrazia ta gure arbasoen izakerak beti poztu gaitu. Orain, berriz, gure oitura gordegarria galtzen ari gera.

Nik ez nuke esango era batera pentsatzen eta beste batera jokatzen dugunik, erri bateko jokaera jardunean egiten dala baizik, eta nai dugun bezela jokatzen utzi ta uzten ez digutela-ta, askoz zaillago egiten zaigula gure bide berezia artzea.

Dana dala, ez dizkigute bide guztiak ixten. Demokrazia-bidea zein dan ondo ez dakigula onartu bear dugu, bañan onek ez gaitu arritu ta bildurtu bear. Ori ikasi diteke ta ikasteko bide egokiena beti arrazoia ez dugula onartzea, egiten duguna egiten dugunean asmo onak al ditugun ala gure arrokeriak bultzatzen al gaitun aztertzea eta guztiekin benetako alkar-izketak, eta ez bakar-izketak, izateko asmo ta gogoa artzea dala derizkiot.

Orregaitik, gai onetan agertu dan alderdikeriak min aundia eman dit, eta Lertxundi'k abesten duen abestiak esaten duena gogora arazi:

«Zer egin degu? Ezer ez.
Zez egiten degu? Alkar jo.
Zer egingo degu? Alkar il.»

Eta nik, abesti orrek bezela, esaten dut: «Ori ez, ori ez».

Alkar il nai ez ba dugu ez gaitezke orain arte bezela jarrai ta bidea aldatzeko egin ditezken gauza guztien artean bat ikusten dut argi-argi: guztiak guztiei bere iritzi ezberdiñak azaltzen utzi dezazkietela.

Orrela egiten baldin bada, guztien iritziak ondo jakiteko bide bat izango dugu. Baña, zoritxarrez, ori ez da dana, beste gauza asko ere egin bear bait dira. Euskaldunak bere pensakera ematen ez ba dute oso gutxi iritxiko da ta eman dezaten, bearrezkoa dala ikusi arazi ta egiteko era errez bat eman bear zaie. Eta au Euskaltzaindiaren lana da.

Eta bukatzeko beste gauza bat esan nai nuke. Euskera batua ateratzeko gaur biltzen ari diranak besteak ez dutela ezer eskeintzen esaten dute. Au egia izango balitz ere, nai dutena egiteko eskubide guztiak dituztenik ez dut uste. Ori erri ta gai guztietan gertatu bait da ta gertatuko ere. Lana egiten dutenak gutxienak dira ta geienak, berriz, ontzat ala txartzat ematen dutenak. Aiek gauza bati onena iritzi dezaiokete, bañan azkenean aukeratuko duena erria bakarrik da eta lana egin dutenak naiz egin ez dutenak berdin-berdiñak dira erabakia artzean.

Dana dala eta egia esan, nik ere uste dut gaur egiten ari dan euskera batuaren aurkakoak ez dutela ezer eskeiñi, orain arte beintzat. Eta eskeiñi bear dute. Bestela erriak alde bat bakarrik ezagutuko du eta, noski, ori aukeratuko bearko.

Au da nere iritzia. Ez dakit zeozertarako balioko duen, bañan esateari bearbearrezkoa nerizkion. Norbaiteri burua pixka bat askatzen ba dio, naikoa izango dut.

Zarraoa'tar Iñaki

BERRIKERIA ALA ARINKERIA

Barkatu! Ez da gauz atsegiña beti jardun batean aritu bearra, beti gauzak eta esanak zuzendu naiean edo argitu gogoz ari izan bearra. Baiñan orrela bultzatzen nautelarik, orrela azaldu bear nere iritziaz eta ustekisunaz.

Baroja dala bide Pelay Orozko eztabaida batean sartua ikusi dugu, erderaz idazten dualako erasoaz. Euskaldunei Baroja erregetzaz eman nai diguten ortaz, ez otz eta ez bero gelditzen gera. Ez gera ain otz eta ain bero gelditzen edozein edo edozer aitzaki artuta «hobby» bat bezela edo grin setati bat bezela Arana Goiri baten jokabide ta irakatsi garbiak lurperatu nai diranean, eta auekin bere jarraitzaille ta euskal-ondorenak.

Aurreko batean erantzun ba-nion «Sabine'k erderaz lan batzuek egin zitualako Zuberoko Joanes Etxeberri burlatzen zala» zionari, gaur beste zeredozertaz erantzun bearrian arkitzen natzario.

Bein, batedonbatek esan zuan, euskera arloan Irakasleak baietz esan zuanari setaz ezezkoaz erantzuten zaiola. Ez dut uste egiarengandik txit urruti zebillenik. Arek «Joanes Etxeberri zanaren burlaz» gaiñera jarraitzen bai-du eztenkadak or-emen emanaz, itxurik gabe gaiñera, ongi ausnartzen ba-duzute.

Z. A., ren 381 gn. zenbakian, loxintxatu egin ondorenean, Pelay Orozko euskeraz idatzi dezan bultzatu nai du, baiñan guztiz itxuramen negargarria. Zergatik eta zertarako sartu bear zuan idazki orretan, esan nai zuanaz itsasterik, elkartzerik edo zerikusirik ez duana?

Unero-unero darioka arri gaiñean ur-ttanttak arria txulatzera dator. Ur ttantta orri egiaren edo gutxienez argiaren aterpeak on apur bat ba lekarkioke. Irakurtzen dakianak au ulertzen bai du: «Lan aundia egin dezakezu, Pelay. Batezere bizkorra azaltzen zeranez Pelay Orozko soillik firmatuaz. «Tar» ipintzeak itxumen ta atzerapen jabe egingo ziñun, edo azaldu arazi...»

Nik uste dut «Pelay Orozko» edo «Pelay Orozko'ko» edo «Orozko'tar...» firmaturik ere idazlearen indarra eta esan naia berdiña izango dala. Esateko iru era oiek errespetatzen ditut, baiñan irakurtzen ba-dut «tar» ori *berrikeria bat* dala, berberak damait eskubide sententzi on gutxienez arinkeri bat dala esateko.

Eta asi naizenez noan aurrera bide. «Berrikeria bat» al da? Oientzat bai, ain zuzen irurogeitamar urtetik onuzkoa, Sabin euskal-izketan asi izan zanetikoa.

Olazabaltarra nazute. Ez Olazabal'goa. Nolaz? Nere aitonaren aita etorri zan kalera lenengoz, «Olazabal» baserritik. Baserrian bizi zan bitartean, abizena ere berdiña zeraman. «Olazabal'goa» zan.

Nolaz esaten dugu Tolosan eta erri inguruetan? Baserriaren izenaz: «Ori Etxeberrikoa da, beste ori Lartekoa, eta ura Etxaidekoa. Baiñan «Etxeberriko», naiz eta abizen berdiña eraman, kalera jetxi da. Emen, semeak izan ditu. Eta seme batek aitaren erriko bat arkitzen du:

—Ni ea zure erritarra nazu, aitarengandik.
—Zeintarretakoa?

Onela galdetzen da inguru onetan, eta uste dut geienetan, gaur eta Sabinek berak aurrera atera zuanean esakera ori. Ez bai-da orain illoba ori Etxeberrikoa, baizik Etxeberritarra.

Eta orain egiten ba-duzute kontu «Etxeberri» basetxean Arregitarrak bizi dirala, Etxeberrikoak izango dira baiñan Arregitarrak abizenez. Ene Olazabal baserrian gaur beste abizen batekoak bizi diran bezelaxe. Eta egizute kontu Arregi'tar oiek kalean semeak eta illobak ematen dituztenean.

Onegatik «tar» ori bereizgarri eta esakera jator bat iduritu zait beti. Jatorra erritik datorrelako, eta erriak esaten dualako. Sabine'k zaarra zana berritu zuan, ez besterik. Ene iritzi berrikeria eldu zitzaigun erdal ixkribauak etorri zitzaizkigutenean, ta gure esakera euskaldunak erdal giroaz naastutzen asi ziranean. Ez ote da aitatzen dutan itxumen ori Sabin aurreratu zitzaigulako ezin-eraman pixka bat? Profeta bakoitza bere garai-garaiean jaiotzen da. Baiñan izan nai ba-dugu, bideak zabalik or.

Alare «berrikeria» gure gogora neurtu dezakegu. Noiztik aasten dan ere. Orrek irurogeitamar urtetik ona finkatzen ba-du, beste batzuek erdaldunak agintzera etorri ziran egunetan finkatzen dugu. Uraxe egizko berrikeria! Alare, bakoitzak bere gogoaz dabillela.

«Berrikeria bat» noiztik dator? Eta esatearen arinkeria? «Berrikeria bat» eta «erria bat»! Auxen bai dala «erriak inon erabiltzen ez duana».

Asko entzuten dut euskeraz nere jaioterrian eta inguruetan. Baita ere iñoiz astotzarrak putzak edatzen. Baiñan nere belarriak, eta euskaldun jatorrenak geiago minberatzen dira «erria bat» entzuten dutenean. Eta ala ere errespetatzen ba-dakigu.

Auetxek dituzute, ene jaunak, nere arrazoiak «tar» orretaz firmatzeko, gaur gogotsuago «berrikeria» batean jausita gaudela, esaten digutenean. Eta gorrotoaren «arkumearen ama» emen edo ontan ba-lego, aitortzen dut ez dutala «tar» ipintzen odolaren arrokeriaz, baizik ziñez iduritzen zaitelako onela dagokiola euskaldun bati, bere gogoa baldin ba-da, beñepein.

Olazabal'dar Xabier

IKUZTEGITIK

Gizadi, etxadi, lagundi, mailladi, ontzidi... askotxo dira-ta, asi gadizan «gaztedi» orregaz bakarrik.

Azkeneko illabete oneitan, or ibilliko zara, zelan ete-daiken, bat-batean eta itxuraz beintzat, berez-berez, aldizkari batzuetan «gaztedi» guztia «gazteri»n biurtzea.

Baton batek uste izan daike, oker legoken zerbait, an or, eta emen lotan eben jakinmena argitu jakoela, zuzentzen asi dirala beingoan. Ez da baiña orrela. Konsigna bat da, ta zintzo jarraitua euren burutik ezer asmatzen ez dakienen artean. Ark or zenzor orreitako bat, eltzen jakozan «di» orreia «ri» ra aldatzen; ikusi azkeneko zenbakietan.

Konsigna onek, beste aurreragoko danen antzera, alderdi bi darabiltz. Aozpoloentzat bata: batasunerako ezinbestekoa ei-dabe. Asmatzailleena bestea: «di» daroan izen indartsu bat ezebestea. Orretarako, «gazteri» ondo zabaldu ondoren, beste aren ondapenari gogor ekin, ta beste a ez da «Lapurdi», au zati bat besterik ez litzake-ta.

Beiztegi'tar Jon

IZEN TA GUZTI

Pozgarria da, benetan, gure egunotako euskal-loratze ederra. Iñoiz baiño aldizkari, idazti ta eliz-orri ta papel geiago eskuetaratzen yakuz. Zorionez, gaiak ere biziak, bizi-biziak darabillez, naiz eta ez beti biziro. Baiña, gaurko nire idazki onetarako ori gitxiena da. Elduko dira, umotuko, edo Sopelana'n-eta diñoenez, zolduko dira orreik ere.

Gaurkoan beste ari batetik eldu nai dautsot sokari, edo beste ari-mutur batetik matazari. Dakusgun, luzaketan ibilli gabe: danak ez, geienak ere ez neuke esango. Bai, ordea, asko ta asko egiazko izen gabe datoz argitara. Ezizen, guzur-izen edo goitizen edo gaitzizen batekin dagerskuz.

Ta ori, nire ustez, kaltegarria da, ta tamalgarria. Euskaldunok, zoritxarrez, ez gara ainbeste milloi, ta ez gagoz ain egokera alagalakoan. Gose-egarriz, ezin-egonez, aurreranaiez eta eldu-miñez gabiltz gure lur gorrietan barna. Aberrian erbesteratuak. Bakartade gorrian ta latzean. Gure eduko bat nun aurkituko barrua ustutzeko edo lasaitzeko, edo, eskerrak lantzean beingo idazle puntu-rengook, asetzeko. Ta or gabiltz aldizkarietan idazten eta irakurten al dogun bestean, alegiñean. Irakurgaia amaitu ta gero... ezizena. Ortik bakartadea arindu egiten yat, ez, ordea, bakartadeango illuntasuna ta itzala. Emon izenak, euskal idazleok. Agertu zeuon buruak, lotsarea lekurik emon baga. Ta orretara, irakurriaz batean, esan neinkeo neure buruari: orra, urlia, sandia, berendia ta alako tokitan ta erritan ere ibil-lagunak ditut. Ez naz bakarrik. Merezi dau aurrera jotzea, lagunak izango baiditut ibilbidean eta alkarri lagunduko edo iñorgandik indarra ta kemena, buru-argitasuna, jasoko dot nire bide latzean. Becquer'ek esaten ebanez: «Ederra da bakartadea, alboan bateonbat euki ezkero», esateko.

Euskalduntasunaren anaidian, eguneko egokera ta premiña gogoan artuta, sar-berriak izanda ere, botuak egin leitekez gai-aldia egin barik. Gareantxook bear geunke geure agintea ta aginkadea...

Etxebarria'tar Juan Anjel

ASTEKARIA - ASTEROKOA

Astean bein agertzen ziran aldizkariai «asterokoa» izena len amoten geuntsan. Orain «astekaria» deitzen dautsoe.

«Astekaria» ta «asterokoa» berbak oso-osrik esanai bardiña ete dauke? Ta bietatik bat ez ete da egokiago erderazko «semanario» euskeratzeko?

«Egunero», «astero», «illero» ta «urtero» berbak txitean potean erabiltzen doguz, ezin-ta ezagunagoak dira. Baita «goizero», «eguardiero» ta bar be. Bilintx'ek Donostia'ko kalegarbitzaille baten zaldiari ataratako bertsoetatik bat olan asten da:

Goizero bear dio
eraso lanari
zikiñak bildu arte
erri danari
.....

Donosti'ko Aurreski Kutxa'k eratutako irratsaioa «eguerdiero» emoten dabena dala eurak esaten dabe.

«Asteka», «urteka» ta besteren bat bear daba erritarrak izan leitekez baiña «egunka» «goizeka», «eguerdika» ta olakorik ez dot uste iñun esaten danik.

Gaiñera «ka» atzizkia dabelarik berba orreik ba-dauke beste esanai berezia. Ni gaztea nintzanean aldi baten, beste gizon batek eta nik, batek aste baten eta besteak beste astean txandan lana egiten genduan lantegian. Axe zan «asteka» lana egitea. «Asteka» lana egiten genduan eta ez «astero». Beraz, berba orreitatik datozen «astekaria» ta «asterokoa» be oso-osorik bardiñak diranik ezin esan daiteke.

Onenbestegaz irakurleak ba-daki nire eretxia zelakoa dan. Niretzat, eta beste norbaitek bestera erakusten ez daustan artean «asterokoa» obeto dago «astekaria» baiño.

Ain Zuzen

Berba oneri, guk, erderazko «casualmente», «precisamente» ta antzekoen esanaia emoten ikasi izan dogu. Ara adibidez esaldi batzuk:

«Alberdi'gana Deba'ra joateko asmoz etxetik atara naz ta ain zuzen atarian beragaz tope egin dot gure beian bizi dan Arantzamendi lege-gizonagaz berba egitera etorrela».

«Erramona Koipe iñun diranak esaten ebillen neskatillen gaurko gona motzak dirala-ta, ta ain zuzen, orduantxe igaro da bere alaba Josune senargaiari besotik elduta, belaunak baiño arra bat goragoko jantziagaz, ¡guk egin doguz algarak!

Ara beste bat aldizkari batetik jasotakoa: «Bere eriotz eguna, gogoangarria Legazpi'rako, Gurutze Deuna'ren eguna ain zuzen».

Baiña len esan dodan lez gaur ez dautse beti «ala bearrez» ko esanai ori emoten.

Ara euskal aldizkarietan aurkitutako esaldi batzuk:

«E.E.U.U.'kin neurtu ezkero» esaten dute «Gu beste garai baten bizi gera ain zuzen».

«Antxieta taldeko ezagunena, noski, UNAI bikotea degu. Maria Karmen eta Maria Jesus, ain zuzen».

Nik ez diñot azkenengo iru esaldietan «ain zuzen» berbea txarto dagoanik; bear bada ondo egongo da. Baiña nire belarrietan ez da sartzen. Ondo badago ondo dago, baiña txarto badago norbaitek ori garbitu daiala.

Kamiñazpi

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Salneurria, 5 pt. alea

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE



ANTZERKI-TALDEEN-TZAT SARIKETA

Bilboko EUSKERAZALEAK deritxon Elkarteak euskal-antzerkiari buruz, asmo andiak darabiltzala entzun gendun. Onetzaz zerbait jakin gurarik, Elkarte orretako idazkari Egurrola'tar Iñaki jaunarengana jo dogu ta itandu:

—Egia al da euskal-antzerkiari buruz zerbait aipagarri egitekotan zabiltzatela? Noizko?

—Euskal-antzerkia zuzpertuteko gogoz eta asmoz, aspalditik gabiltzala, egia da. Asmo oneri dagokionez, Antzerki-Taldeen Sariketa on bat antolatu gura geunke datorren udagoenean asi ta negua zear, gure antzezlarien trebetasuna norañokoa dan ezagutzeko ta euskal-antzerkiaren giroa gori-gori jartzeko. Saiuok, Bilboko antzokiren baten izango dira astero naiz amabostero, nai dogun legez eraldutea lortuten ba'dogu. Eralguntzea eskutarteau darabilgu, ta garaiz iragarriko doguz Sariketa ortarako baldintzak.

—Ta... zetariko antzez-lanak izango dira?

—Oraingoz, asikera emoteko, ordu erdi inguruko antzez-lanak izango dira, luzeagorik ez. Talde bakotxak, bizpairu lan ekarri daikez; naiz talde arreik eurak aukeratuta daukezenak naiz geuk opalduko dautseguzenak.

Guk, ogetamar bat antzerki errikoi gertu daukoguz, danak bizkaieraz. Ez aiztu, EUSKERAZALEAK Elkartea Bizkai barrutirako sortua dala. Orregaitik, bizkaieratu egin doguz, batez be aspaldi argitalduriko gipuzkerazkoak. Beste arroiz izkuntzetatik itxuliak be ba'doguz. Itxultzaile, Etxenagusia, Arregi ta Zubiri jaunak izan dira.

—Jakin al daikeguz, txorta orretan daukozuezan euskal-antzerki egilleen izenak?

—Esate baterako orain arte irarkolan daukoguzan egilleen izenak oneik dira: Labayen, Goserio, Zabala, Lizardi, Tene, Nazabal, Arozamena, Etxaniz, Lekuona, Larrea, Ziarsolo, Larraitz eta abar. Ta abar badiñogu, geiago gertatzen gabiltzalako esaten dogu. Ordu erdi baiño luzeagoak be aukeratuta daukoguz, baiña oneik datorren urterako lagako doguz.

—Orduan... negu aldera, astero izango al dogu euskal-antzerkia Bilbon?

—Asmo orretan gabiltz, antzeztoki tajusko bat eskuratzeak dakarzan eragozpenak eta enparauak gaintzen ba'doguz beintzat. Gaurkoz, ez daiketsuet geiagorik esan. Garaiz azalduko doguz izparringietan, Sariketa onen baldintzak eta beste zertzelada guztiak.

—Eskerrik asko Egurrola jauna. Izpar ona dogu au.

* * *

Antzerki-Taldeok! Argi ibili; gertau zaiteze; sari bikaiñak izango diran susmotxoa atara dogu-ta.

IMANOL

GAZTEDIA

Munduan danok daukaguz geure betebearrak. Bakoitzak bereak. Baiña danok emon bear dogu ta nañoz eta nañon, ikasbide ona. Zoritxarrez ikasbide txar asko ikusten dogu gaur egunean kalean, agirian. Eta ikasbide txarrok geituz doaz egunero.

Ez al'da egia gaurko gazteak, batez be ezkongeiak, zer esan aundia emoten dabela? Ez al'da egia gaurko ainbat eta ainbat ezkongeien izakera ta ibillerak ontzat ezin artu leitekezala? Zer ikusten dogu bai egunez eta bai gabaz? Kale-bazterretan, bide-ertzean... Bai ikuskizun zantarrak, lotsagabekeriak...

Zu neska, gazte orren seme-alaben ama izango zara-ta etzara lotsatuko ama izatera eltzean eroan zenduan gaztaroaz? Zu mutil, etxoko buru, etxeko errege izango zara bein neska orregaz batzen zaranean eta oraingo bizitza lotsagarria da. Gazteak, neska-mutillak artu-emona euki bear dabela ez dogu ukatuko. Artu-emon au bear-bearrekoa da alkar ezagutzeko, baiña ezkontzaren bitartez batu arte, garbi izaun bear dabe, garbi gorputz eta garbi arimaz. Gorputza Jaungoikoaren bizitegia da, arima bizi da bere barruan; gorputza santua da ba ta ezin erabilli leiteke edozelan, ezin zatarkerietan.

Galgarik ez dauan gizartea, mundua laster da ondatu, laster ezetu bizitz-oñarrien aurka doalako. Gazteak Jaungoikoagana zuzendu ta jaso bei bere burua, ez ibilli bear, oziñera begira. Bier negartu gura etzendukana gaur zuzendu.

GOIRIA


JAZKERA BARRI ETA GALTZETORRATZEKOAK

Querricabeitia

Artecalle, 32 ◆ BILBAO-5 ◆ Urrut. 21 65 67

ARRUTI-ALDAPE

Neba-arrebak G. B.



Guraso jatorren ume zintzoak, erri zale benetakoak, adizkide miñak. Sendi bat zatitu da, Arruti-Aldape'tarrenean ba-da gaur samiña. Dindirri taldea negarrez dago. Miren eta Iñaki seme on, dantzari bizkor eta euskaldun garbiak, bide zabaletako zerga barriak eruan dauskuz. Izango al-dauz Jaungoikoak zorionean gure zain eta zaindari!

AGUR

LOYOLA'KO IKASTAROA

Andereño irakasleak bear doguz; Euskerea dakienak eta euskeraz erakutsiko dabeenak. Ikastolak bear doguz; Aurrak eziteko toki egokiak eta gurasoak beren ardura onetan laguntasun txiki bat idoro al-izango dabezanak. Danerako baiña, oztopoz beteriko bideak aurkiten doguz: Legeak, andereño titulodunak izan bear; euskal-ikastoletarako ikastaro-txartelak; bilinguismoa, ta guzti au lenengo. Ba-da baiña txarragorik, giro onek sortu dauskun erreka zikiñeko arrantzalia, azpijanean, lotsagarrikerietarako liberatuak, itxu-itxuan jarraitzen diran aginduak, emakeria, jaungoiko-eza... Guzurra guzurraren gaiñean, euskerea nundik betiko itoko.

Bigarren gaitz onen sendalariak gurasoak izan bear dogu. Gure aurren etorkizuna eta gure erriaren izatea dabiltz bitartean. Ikastolok gure sakeletik bizi dirala, listo-pasatu batzuen eskuetan galdu ez daitean. Gudan etsaiaren aurrean, lagunak salduta, iges egitea baiño okerkeri aundiagoa da aurrak orrein atz kiribilletan uztea.

Ori dogu bigarren gaitz onen osasun bide bakarra, bestearena, urrutitik datorkiguzan aginduak dakarrena zuzentzeko, alegin bat, ta ez txikia, igaz Donostia'n eta aurten Loyola'n, Lasa'tar Joseba apaiz jaunak eta Oñatibia'tar Jon jakintsuak jator, zentzunez, euskeraganako lotsa-benetasunez eratu dauskuezan ikastaroak dira. Or daukazuz igaz aur-zaintzaille edo parbulario gobernuko txartela lortu eben andereñoak. Ta titulo au bearrezkoa ba'da be sarri agintarien aurrean, an ikasi ebena be ez zan izan txantetakoa.

Aurten 300 neskato darabillez Loyola'n, Dagonil onen 2'netik 14'ra. Goiz ta arratsalde ta jai egun; itxas-ertz eta maiteminduak albora lagata, jo ta su ikasgarri barriak, erbestean gorengo dirala ziñestuak, ikasten.



Ara baiña, sagar ustel banaka bat aski ei-da otarra osoa ondatzeko. Emen be, or darabilguz orrelako ustel batzuk, nundik ikastaro au apurtzeko alegiñetan. Igaz, orrelako pare batek, tituloa artu bear eben unean bertan, gose-oporketa bat, huelga de hambre, dalakoa, egiteko itza zabaldu eben, neskatoak ezetz baiña. Orrelakoak egiteko belaxe dabez zergaitiak: sapaiak itxogiña dabela edo ogiak gatz geiegi, dogmak ez dabe garrantzirik, benetako asmoa, neskatoak titulo barik lagatzea zan. Aurten be or dabiltza dozenerdi bat ule-luzedun mutil Loyola'ko inguruetan, nundik ikastaro au eten daikeen billa. Lenengo, areitako neskato bik, ikastaroan sar-arazi nai izan ditue, arauak baiña, ludi guztian lez, aur-eziketarako emakumeak bakarrik onartzen dauz, eta mutikook etxera joan bear izan ziran. Etxera? Orretariko bat, elgoibartarra, illuntzean ixillean eta ezkutuan neskatoen lo-geletara igo zan. Emen, neskak eurak bota eben eta gero arduradunak kalera jaurti. Ordurako oiñetakoak kenduta zan, an lo egiteko asmoan. Zein asmogaz? Orrelako batzar bat ondatzeko izen txarra emotea baiño ezer errezagorik bai-ete? Sua bera baño okerragoa ziur. Arrezkero, ikastola inguruan ikusten dira bera ta bere lagunak, eta ezer onik egiteko konsigna ete-darabillen zalantzean besteok.

Burruka onetan, atzerritik datorkiguzan oztopoak gaintzeko alegiñetan bat izan bear leukean erriak, etxean, lotsagarri jokatzen ikasi daben batzuek oztopo jartzen diardue, ta burrukatu bearrean gagoz. Guraso zintzo! erbestekoana arintzen alegiñetan dabillazenak eskaera bat egiten dautsue: Asi gogor zeure ikastolako aukerea zuzentzen; iñork al-ba'dau zeuk al-dozu-ta.

Ikastaroko zeaztasunak

Arin-arin ez ba'da be, ara emen zer ikasten daben gure andereño lanpetuak. Goizeko bederatziretan; Zenbakiketa. Gaurkotasunezko matematikaren lenengo urratzak, aurrak ulertu ta ikasiko dabena; orretarako bear diran esku-gaiak nola erabilli, eta gaurko auburu-bide barriak erraz erakusteko itz eta esakerak asmatu. Irakasle gai onetan Maria Rubies katalandarra dabe.

Amarretan; Aurrentzako ipuin, irakurgai, antzerki eta ikastaldi bitarteetako jolas uneak nola bete. Irakasle Aurora Diaz Plata anderea.

Amaiketan; Esku-lanak, artatirik erabilten ez dakien aur txikienetatik asi eta azitxoagoen artean erabilli bearko dabezan ingiebate, buztin-argizai eratze, zulatze, zur eta lasto lanak, gai merkeegaz egin daikezan ainbat ikusgarri. M. A. Colón.

Gero; Irakasketea bera. Aurreri nola egikizunegaz arduratu eta buru-jabetu, ganoraz jokatu, eginbearrak zuzendu eta orretarako bear dan arreta barru-barruan ezarri. Irakasle Fuster jauna, urte askotan onetan ibillia eta andereñoeri bere irakasketa goi-goikoa iruditu jakoela.

Bazkaldu, eta lauretan zenbakiketa barriz, oraingoan esku-gaiak erabilten eta gertatzen ikasi. Aurrak, ulertu daben edo ez, igartzeko bideak aztertu.

Bostetan; Marrazki gintza, izkuntza irakatsi eta aurrak erraz ikasteko marrazkien barriak, argazki erakusketa, umearen marrazkien aurrerapenak eta aldaketak urteetan aurrera doala. Irakaslea Rosa Gratacos anderea.

Zazpiretan; Jaungoikotasunaren irakasketa. Zergaitia, noraiño ikasi daikeen urteen neurrian, eta nola erakutsi. Irakasle Jacinto Matas.

Bigarren astean; Soñu-eresi-abestiak; Ikusketa eta entzuketa bidezko irakas bideak, izango dira gai barriak, ortik ikusi daikezu zenbateraño alegintzen diran bene-benetan ikastaroa, euskera eta aurrak maite dabezan neskato jator oneik.

LARTAUNGOAK

KONTU KONTARI

OLLARRA KANTARI

Egun batez nagusi bateri, bere morroiek diru mordo bat ostu eutsen. Jakiña, nagusia asarratu zan ta bere aurrera deitu ebazan esanez:

—Zuen artetik nor izan da neri dirua ostu daustana?

Iñok ez eban nai izan lapurreta agertzea. Orduan nagusiak esan eutsen:

—Nik badaukat norbait, zuen lapurreta agertuko daustana.

Eta... nagusiak bere ollotegitik ollar bat artuta, kedarrez baltzitu eban, ondo baltzitu be! ta otzara baten azpian egaztia sartu ondoren, bere aurrera deitu ebazan morroiok esanaz:

—Orain, banan etorriko zarie, ta zuen eskua otzara azpian sarturik, ollarraren lumak ikutuko dozuez, ta ollarrak, lapurraren eskua bere gain somatzen dabenean, kukurruku aundi bat egingo dau.

Morroiok, euren nagusiaren agindu bete eben, baiña ollarrak ez eban egin kukurrukurik. Orduan nagusiak esan eutsen:

—Orain danok erakutsi zuen eskuak.

Batek ez beste guztiak eskuak baltzituta eukezan, arek bildurrez ikutu ez eutsolako.

—Zu zara nere lapurra —esan eutson nagusiak esku garbiari.

«Ez dozue uste, «esku garbi» asko dabillela or-zear?»

Alkar lagundu

Bein batez asto bat eta zaldia ba'joiazan aldatz-gora. Arratsalde berua zan. Zaldia, zama gutxikin arin-arin joian. Aldapea aundia zan eta astoa oso nekatuta. Zelai baten urreratu jakon astoa zaldiari ta esan:

—Adiskide: errukitu zaitez nigaz ta lagundu nagizu apurtxo bat, eten bearrean noa.

Zaldiak ez eutson jaramonik egin. Andik gerotxoago erregutu eutson barriz:

—Zaldi bikaiña; lagundu egidazu, bestela karga onekin ementxe lertuko naz. Baiña zaldiak belarriak mugituaz ezetz esan eutson. Andik gerotxoago, plast! astoa lurrera jausi zan arnasarik bage. Laster eldu zan nagusia ta astoaren karga aundia arturik, zaldiari bizkar-gaiñean jarri eutson, ta gaiñera asto gaxoaren gorputz illa.

Kontu onek erakusten dau, mundu onetan alkarri lagundu bear dautsogula, norberan eginbearrak erozoago erabilteko.

ABELETXE

URBIA'KO MEZA

Mendizale zarra, bidetxior arritsu eta aldapa gaitz guztiak atzean utzi ondoren, Urbia'ko zelayan arkitzen da. Gure gizona, oraindik izerdi patsetan eta arnasa paketu gabe, igoeraren nekeak ez dirala alperrik izan, konturatzen da bereala.

Udara asiberri egun bat da. Giro ederra. Joan dan egunetako laño, euri eta lanbro guztiak pasa dira eta zerua txit garbia agertu da. Eguzki erregeak gogor berotzen du.

Jaiero bezela, baselizatxoaren atarian artzai eta mendigoizale neska-mutil talde batzuek bildu dira. Mezaren zai daude. Danak alai, izketan, ojuka, farrez.

Oyetako talde batean —«errespetuko taldean» esango genuke— gure mendizale zarrak bat edo beste aspaldiko lagunak agurtzen ditu. An, igandero bezela, azaltzen dira Aita Lasa, Aita Yurre, Fray Iñaki, Eloy Tejada (larogei urteko meza-laguntzaille kementsua), Urbia'ko Erregiña deritzaion Elina Ondarra, oñatiar Urbizale jatorra dan Rejino eta abar etab...

Bat batean, kanpaitxoaren soñuak goialde eder orren ixiltasuna autsi egiten du. Mezaren deia. Orain gazteak, jende seriyo biurturik, elizatxoan sartzen asten dira pixkanaka-pixkanaka.

Aita Lasa eta bere meza-laguntzaillea azaltzen dira aldarean astiro-astiro. Meza asi da. Oi dan bezela, erriko gazte batek irakurtzen du Epistola. Euskeraz, jakiña. Ondoren, Aita Yurre'k bere mintzo goxuan, omiliya. Eta erriak —alegia, mendizale neska-mutillak eta Urbizelaiko artzayak— gartsu kantatzen dituzte euskal moteteak.

Meza bukatu ondoren, bateon batek gure mendizale zarrari sakristira pasatzeko ots egiten dio (eta pozik obeditzen dula zer esanik ez dago). Bereala, Elina eta oñatiar sukaldari famatu baten artean —onen izena beti aztu egiten zaio albistariari— saldaz betetako katilluak jartzen dituzte mai gañean.

Eta, zer izketaldi politak sortzen diran tarte ortan! Aita Yurre'k, txinatarreen berezitasun eta gorabera asko kontatzen ditu; Aita Lasa'k, Cuba'n pasatu zitun amalau urteei jotzen dio; Eloy Tejada'k, bere aldez, laister mezalaguntzaille bezela, nola beteko zortzireungarren aldia esaten du...

Ain atsegiñ, gure mendizale zarrari joateko ordua allatu zaiola konprenitzen du eta giobel jartzen da. Bañan, ez dago beste erremediyorik. Bere beste lagun batek askotan dion bezela: «Berriz etortzeko, derrior joan egin bear...»

MIKEL PELAY OROZKO'K

GIZONA POZTU DA

Gizona poztu da.
Lurra alaitu.
Arkaitzak ura emon dau.
Izarrak argia.
Bizia gazitu dau
gatzaren indarrak.

Gizona
berari
dagokion tokian
jarri dau Aita Santuak
Jinebran
lateriarteko
beargiñen landolan.

Gizadiak entzun dau
dei ernegarria,
gizonai zor jaken
egi-indarra.

Alakoek uste eben,
zaldiena baiño
txikiago zala
gizonen bizia,
dirukeri
ta ondasun pillatzeak
lagun bizitzaren
goitik
jarririk.

Aita Santuak,
garbi, jarri dau
gizonaren duintasuna
bere doai argitsuetan,
gizonaren nortasuna
bere izate bakanean,
gizonaren gizontasuna
bere erantzupen indartsuan.

Dirua,
indarra,
jakituria,
gizona otseintzeko dira,
oso-osoan,
giza bizitza
guztian.

PAULIN

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik.

Gaur goizean urretxindorra etorri yat bere azkenengo oarrak ikas daidazan. Esan daust bizkaieraz idatzi bear dodala, baiñan noizean bein beste euskalkietako itzak sartu daikedazala, bazekielako Urzo'rekin izandako artu-emonetan beste euskalkietako itz mordo bat ikasi izan nebala.

Urzo maitea...!

Udagoiko arratsalde garden batean yazo zan. Ego-aize ibiltariak bere eresi sorgingarria nun-nai edatzen zuen. Gipuzko ta gure Enkartaziño'ko mendiak egurats garbi artan argiro marrazturik ikusten ziran. Aize-zartadek zugaitzen adaburuak iñarrosten ebezan eta ostoak urrezko malutak bai' liran, aizearen altzoan adi-miñez yabeturik yoiazan beste lurraldeetako ipuiñak yoranez beterik entzuteko.

Arresibe'ko larrean yanari billa ari nintzala, egaketa baten otsa aditu neban eta begiak zeru urdiñerantz zuzendurik, pago-uso eder bat neugana etorrela ikusi neban. Egaztia oso nekatuta eritxan, mozkorti baten antzera alboka egiñaz yoialako. Andik laister bedar gaiñean kokatu zan erdiz etzinda arnasa artuten ebala. Urreratu nintzakion eta orduan oartu nintzan odolez zipriztindutako ego bat lurreraiño eskegiten yakonala. Begiok itxita eukazan eta eztarritik arnas estua txistuka etorkion. Uso gaixoak itxura errukigarria erakusan eta neure yakin-miña yabetu eziñik itaundu neutson:

—Zer yazo yatzu, nundik zatoz?

—Benabarra'tik natortzu ta ezin dot aurrerago yoan. Egarri naz... egarri naz Txepetxa, esan egistazu nun idoro daikedan ur apur bat nere egarri eroangaitz au asetzeko...

—Zatoz nerekin.

Eta yarraiki Iturribieta'ko ur gozoetara zuzendu neban. Itsua bezela ur ozkirrietara oldartu zan eta etengabeko edaketa bateri emon eutson. Gero, uretan sartu zan eta bere biziko bustialdia artu eban egoan itsasitako odol-tantoak kentzen ebazala. Orain beste itxura emoten eban, baiñan igartzen yakon makal aurkitzen zala, yanari ezagaitik noski. Arresi baten gaiñean azkenengo masustak sasietan itsasiak oraindik zirauiten. Onek ikustean, usoak sasien artean yaurtiki zan eta idoro ala yan eban. Gero zugaitz baten adaburuan kokaturik, bere bizitza edestu eustan.

Usoa, bere arrebarekin batera leengo udabarrian Benabarra'ko pagadi batean yaio zan. Laister egan egiten ikasi eban eta ordudanik beti bere arrebarekin bizitzaren ezkutapenak ikasten ari zan. Biek egaldi luzeak egiten ebezan eta olan, Gipuzko, Napar eta Lapurdi'ko lurraldeak Benabarra baizen ondo ezagutu bere. Uda guztia olan iraun, azkenik udagoia eldu zan eta Urrilla'ko leenengo ego-aizeak etorri baizen laister, ego-lurraldeganako yoran nausigaitz bat sortu yaken eta illunabar batean, urrengo egunean urrezko eskualde aienganantz yoatea erabagi eben.

Biaramunean eguzkiko leenengo printzak agertu ala, Urzo ta bere laguna egoaizeko laztan epelek inguraturiko, toki ezezagun aietarantz abiatu ziran. Ordurako ortze urdin-aratzean, pago-usoak nun-nai ikusten ziran danak bide bardiña eroiela. Ordu batzuk olan igarorik, Urzo ta bere laguna atseden-aldi bat artzea erabagi eben eta bide batez an beean ikusten zan pagadi batean ezkur batzuk yan ere bai. Leku egokibaten billa oiana begiz arakatzen ebela, pago aundi bateko erpiñean uso batzuen egaketak nabaitu ebezan eta arantz azkonak bezela zuzendu ziran. Adaburuan kokatzeko zorian zirala, ustekabez oianeko pakean danbada bi aditu ziran eta Urzo'ren laguna unetxu batez aidean gelditu, luma batzuk yaulki yakozan, eta lurrera eldu gabe il zan. Urzo'k ostera, ego batean erremin izugarri bat oartu eban eta adaburuen artetik ekiñalean ostendu zan. Gero, neke utsaz yatxi ta bedar gaiñean izuz dar-dar, luzaro egon zan zer egin yakin ezik. Azkenean, andik ez urrun, ur garbietako idoi bat begiztatu ta an bere egarri aundia itzali (amatau) eban. Toki artan egun bi iraun ebazan eta noizbait apur bat bizkorturik, egorantz egan egin eban. Baiñan zauritutako egoa ezin eikean bear lez erabilli, ta ez-arian ez-arian Bizkai'rantz igarri barik yoian eta arratsalde artan, indarrak galdurik Arresibe'ko larrean yausi zan.

—Orregaitik emen nozu Txepetxa —amaitzeko Urzo'k esan eustan— Egun batzuk emen zurekin igaroko dodaz, eta sendotu nadinean, barriz ego-aizean zear urrezko lurraldegana abiatuko naz neure lagunekin batuteko...

Gau artan izarrak iñoizkorik ederrenak agertu yakuzan, eta ego-aizeko laztan epelek urrumaturiko, Urzo ta biok lo indargarri batean murgildu gintzazan.

Urrengo egunean goizetik, Aristizabal basora egan egin genduan eta Urzo gaixoak bedar-gaiñean ainbeste ezkur ikusirik, gose utsaz asetu arteraiño iruntsi eban. Gero andik igarotzen zan latsetik ur gozoa edan eta ostera bere ezkur yateari buru-belarri emon eutson, neuk or-emenka ikusten ziran arrak arrapatzen nebazala.

Zenbait egun olan igaro ziran, eta nabari zan Urzo'k indarrak barriz artzen ebazala ta laister gai izango zala egorako bidaia yarraitzeko, baiñan zorigaiztoko egun batean... Arratsalde artan Urzo ta biok areitz tantai baten pean nasai bedar biguaren gaiñean genbiltzala, ez gintzazan oartu eiztari bat urreratzen zala. Ustekabez eztanda bat aditu zan eta ikusi neban Urzo'k gorantz zearka ekiñalean yoiala abaro artetik ostendu arte. Naigabez ia zoroturik, oiana arakatzen neban. Eguzkia sarkaldeko mendietatik itzaltzeko zorian ikusen zan eta onen izpiek inguratuta, Urzo bizi-gabeko irudi bat eritxan. Anka batetik odola pupulluka (borborka(erion eta adarretik beera ari gorri baten antzera yatxiten zan. Gor eta itsua bezela an geldigeldi zirauen uso zorigaitzekoa.

—Urzo, Urzo laztana —deadarka esan neutson— Zelan aurkitzen zara?

—Txarto Txepetxa, indarrak makaltzen yataz, ez dakit noiz arte iraun daiketan...

Orduan, enbor lodian abi antzeko uskune zabal bat ikusi neban eta guztiz unatua Urzo an etzin zan, Gero, gaua eldu yakun eta lotan asi gintzazan. Alako batean, itxartu nintzan eta iretargi-pean Urzo dar-dar izugarri baten mende ikusi neban oiuka esaten eustala:

—Txepetxa, ura... ura!...

Zorionez, iretargi beteko gauau zan, eta orduan urketa izugarri bat asi neban latsetik mokoan urtanto bat aldi bakoitzean nekarkiola. Gaua olan igaro zan eta argitu zanerako, egarria apur bat arinduta, Urzo erdi lotan asi zan. Orain ez eban dardar egiten baiñan nabari zan sukar kiskalgarri batek atzitua zala. Gero, barriz itxartuta ura eskatu eustan, eta olan txandaka eguna igaro zan ezer yan gura ez ebala. Argi betean usoaren zauria aztertu ta, ikusi neban iztarreko narrua arramaska aundi bat erakusten ebala, baiñan ez eritxan ardurako zauria. Ixuritako odolketatik etorkion makaltasuna. Urrengo egunean ezkur batzuk ekarri neuzozan eta yaten asi zan. Zenbait egun olan igaro ziran eta astiro-astiro usoa sendotuten yoian. Gero, irrikan zerurantz begiratzen asi zan ego alderantz yoateko garaia noiz etorriko litzakion igurikan (itxaroten).

Baiñan egun batean ego-aizearen putz-aldia amaitu zan, ortzea odei lodiz estaldu, ta euritean sartu gintzazan. Urzo'ri lurralde epeletako dei erakarkorra ez etorkion yadanik, eta laister oartu zan, ordurako osatuta ba-zan bere, nerekin negutea iraun bear izango ebala. Aspaldi batez itun eta naigabetuta ikusi neban, baiñan azkenean zertu zan.

Arrezkero, gure neurriak artu genduzan. Urzo yanariaren billa yoianean, ni begirari yartzen nintzan leku garai batetik, eta zerbait ez oitua aditzen ba'neban, txistu bereizi batez usoari adiarazten neutson iges egin zezan, eta olan eiztarien zelatak uxatu genduzan. Neguan sartu baiño leen, txarrotalde batek gure oianeko ezkur guztiak garbitu ebazan, eta Urzo'ren yanaria amaitu zan. Orduan gogoratu nintzan Lizarmendi'ko pagadian ezkur aunitz (asko) izango zirala, ta ara aldatu gintzazan. Toki garai ontan nai ala ezkur idoro genduan.

Eta olan igarri barik negua asi zan. Urzo'k eta biok amaigabeko alkar-izketak izaten genduzan, eta ez-arian bezela beste Euskal-erriko mintzairak (berbaerak) ikasten nebazan. Bai gozo ta eresintsua gure izkuntz zaarra Urzo'ren aboca emoten ebala!... Ba-zirudien beti abestuten an zala. Benetan ederrak Gipuzko, Napar eta Bidaso'z araindiko (beste aldeko) euskalkiak!... Berak bere Bizkai'ko izkera laister ikasi eban. Beñola esan eustan:

—Txepetxa, nik beti entzun dot Bizkai'ko euskera latza ta gogorra dala, baiñan ziñez diñotzut eder-ederra deritxadala, ta nere ustez oso gozonki aurkitzen dot.

Itz oneik entzutean, pozaren pozez zoro biurtu bai'nintzan abestuten asi nintzan.

Otsailla'n Lizarmendi'ko pagadia edurrez estali zan eta ezin geinkean yanaririk idoro. Gosez utsaz argaltzen asi gintzazan, eta arazoak ospatxarto zirudienean, ustekabez burura etorkidan Agiñalde'ko etxeko-andreak edurtzetan artoa ta ogi-zatiak atarian egazti gaixoentzako ipintzen ebazala. Nik uste izandako lez gertatu zan eta ara eldurik, asebete bat izan genduan. Gero amatuteko, etxeko sastegian benetako arraketa idoro neban. Egun batzuk olan igaro ziran eta azkenean edurra gesaldu (urtu) zan eta gure pagadia itzuli (biurtu) gintzazan.

Epailla'ko azkena zan eta nun-nai udabarrirren aztarnak igartzen ziran. Bizi-yoran batek eroginda, maitasunezko ezaugarriak toki guztietan nabari ziran. Ni neuk iñoizkorik kementsuen etengabeko abesti batean ari nintzan. Urzo'ren urrezko begiek diz-dir barri bat zerakusten eta burua ortzean zear, nik ez dakit zeri begira ta begira ikusten neban.

Arrats batean esan eustan:

—Txepetxa, ba-dira egun batzuk nere lagunak zeruan zear iparrerantz bideratzen dira'a. Bia goizean ni bere bai arantz abiatuko naz. Nerekin etorri nai izango dozu iparrerantz?

Nere eztarrian korapillo itogarri bat eratu yatan:

—Ezin doi, Urzo. Euskalerri'tik urrun eziñezkoa yat bizitza. Zergaitik ez zara emen nerekin geratuten?

Baiñan Urzo'k ezin zezakean bere usokideen deia garaitu. Gau artan, Urzo'ri bularretik gora urruma bezelako zerbait igoten yakon.

Egun-sentia zan yadanik. Urzo'k orduan esan eustan:

—Ez al dozu an goian orbantxuak bezelakozeozer ikusten? Arek dira nere lagunak. Eurekin laister izango naz. Agur Txepetxa, urte oro egon aizeetako aroan emen izango naz zu ikustearren. Eskerrik asko danagaitik. Agur txoriño.

Egoakaz laztan bat egin eustan eta ortzeko urdin sakonean galdu zan. Gero, oartu nintzan begietatik malkoak mara-mara yausten yatazanala.

Ordudanik, urte guztietan Urrilla'ko ego-aizeak asten diranean, Urzo'ren begira Arresibe'ko larrean izaten naz, eta bai orduan gure poza alkar-ikusten dogunean!... Gero, amaigabeko alkar-izketan eguna igaro ta gero, Urzo eguratseko besoetan murgiltzen da bere urrezko lurralderantz.

Urzo maitea!... Batzutan oldozkun eroangaitza datorkit... Egunean batean eiztari batek danbada-pean ilgo ez ete zaran!... Olan ba'litz neure biotzean itzali eziñezko zauri bat sortuko litzaidake!...

AGIÑALDE'KO TXEPETXA

KIROLAK

OSTIKOKETA

Ara atzera foballaren aro barria. Urtero lez, San Mames, Atotxa eta, beragoko mallan, Ipurua, Aritzbatalde, Romo edo Basozelai ostikopean ondo jorratuak izango dira urrengo bederatzi illebetetan. Ondo jorratuak eta ikuslez beteak, orrela eida ta orrela onartu bear.

Ainbeste onartze orregaz, artalde itxura guztiak geuganatzen gabiltz, ta gure dirutik bizi dirala, ezer galdetzen ez ba'dauskue be, zerbait obarik eskatu bear genduke. Ara or eskotiar eta galestarrak, euren kirol bazkunak daukez, euren izena, nortasunaren agiria, lur zabal osoan ezagutzen dogu ostiko edo antxitxiketalarien bidez. Guk ostera...

Ara zer jazo dan Normandi deritxoen Frantzi'ko iparraldetik dan lurraldean: Euren kirol batzak bi dira, aundia da-ta izan be. Ara baiña, orrein gaiñetik dagon Paris'eko kirol zuzendariak, datorren urteko Munich'en izango diran jokaldietarako era guztietako kirolzaleak bizkortu daitean, Frantzi guztiko alkar leyaketak asmatu dauz, bi edo iruka Kirol Batz orreitakoak alkartu ta euron artean norgeyagoak jokatzen jarri. Edozeiñek uste izango dau Normandi'ko batzalde biok alkartuak izango zirala, bai zera, bata beste iparraldeko bazkunekin sartu dabe, bestea sartaldekoekin, bitartean legoken lurrebagia sakontzen.

Gaizki ikusia izan da au normandarren artean eta euren agintarieri eskatu dautsoe zerbait egiteko Paris'en ebaketa ori galtzeko. Bitartean ikastola nagusietako, Rouen eta Caen'ekoak, eta urinagusietako ikastola aundiak daukezen kirol taldeak, amateur bidetik dabiltzala, euren arteko jokaldiak eta txapelketak eratzea erabagi dabe, beste kirol-ikusketa dirupetueri jaramonik egin bage.

Olako zerbait beste nunbait ikusita nagolakoan nago, ez dakit baña nun. Onaren on bearrez ez ete-nabil gero oker aundiagoren baten azpian amesetan: Ez litzake ba obea, alkartu eta anai arteko burruka-kirolkoitik, igaz lez, anai arteko gorrotoak aututzen alegiñean dabiltzaneri giro obeak aukeratzea. Bakoitzak, berak merezi dabena izaten ei-dau, guk be, kirol-jokoak arrika-burruketan biurtzen doguzan artean, anaitasun eta alkartsun ate zabaletik baiño orma gaiñetik alkarri begira obeto ete gabiltzan ba-dot zalantza.

Atotxa edo San Mames'era arte ba, or izango gara geure txokor aundia aurretik daroagula, zeiñek, zeiñek baiño, orru aundiagoko kirol zarrean.

IZAR

MENDI-ZALETASUNA KIROLA LEGEZ

Kirola, beti egon da, biar bada, gure artian sakon sartuta, palankaritza, arrijasotza, aizkolaritza ta batezbere, nondik jatorkun edo sortu zan eztakigun arren, geure-geuria lez gurartian zustraituta daguan pelota, zerbaitegaitik ludi zabalean «euzko pelota» izenakin ezagutzen dana, da, kirol atsegingarri orreen tartian, azkenengo urteotan batezbere, alpes-zaletasuna edo gure erara esanda, Mendigoi zaletasuna.

Mendigoizaletasuna, orain ikusten dogun kirola legez, biarbada ezta antziñatua izango Euskelerrian, naita gaur-eguan iñon baizen zustraitsuago jabetuta aurkitu gurartean; baiña, zaletasun ori gure asaba zaarrak gandik datorkigula esan gintzake, aldi artan, leenengotan ogibidez, atzaintza, eizaritza ta abar egiten bazan-be. Danori dala, bildur barik esan gintzake, euskotarrok odolian daruagula mendigoizaletasuna, biarbada bertan aurkitzen dogulako uri andietan eta lantetietan aurkitzen ez dogun aize garbia, ezkatasuna ta benetako gentza edo bakia. Orregaitik, zelan uriak aunditu ta landuak ugaritu, alan geiago gaiñatuaz juanda mendizaletasuna igarotako gizaldian azken aldiroztik eta, orretara izanik, gizaldi onen lenengo laurenarako 27 mendizale bazkun ziran ego aldeko Euskalerri ontan.

Ikusirik kirol onen, mendizaletasunan, garikera, biar diran araudiak gertu onen batzartu ziran bazkun orreen ordezkariak 1924'gko. Orrilla'n Elgeta (Gipuzko)'ko errian, bertan eratuteko Euskalerri'ko Mendizale Batza, gazteleraz, onetara zan bere izena; Federación Vasco-Navarra de Alpinismo, eta beren lendakaritzat autua izanik Bandres'tar Antxon jaiotzez tolasar jatorra, gero bilbotar zintzua lez izango zana.

Mendigoizale Batza sortu-ta laster baña, gogoratu ziran mendizale jatorrak, «Vasco-Navarra» izena ez eguala ongi jarrita euskualde guztiak ziralako euskoak eta, urrengo batzar baten erabagia artu eben, napartarren eskapidea ontzat artuaz, aurrerantzian Eusko Mendigoizale Batza (Federación Vasca de Alpinismo) legez ezagutzeko, ta orretara jarraitu eben gurartian sortu zan gudaketa mingarrirarte.

Aipatu dogun Mendizale Batza, edo argiago euskeralduta, Eusko Alpes-zale Batza sortu-ta urte asko baiño leen, gaztedi euskeltzaliak sortu eben, laster baten, Euskalerri'ko gaztedirik zindoena bilduko eban Euzko Mendigoizale (Mendigoxale) Batza. Alpes-zale Batza'kuak ezpaziran be, adizkidetasunik andienian irauteko. Jakiña, gudaketa ostian beste bazkun asko legez Mendizale Batza, bananduta, ia suxituta geratu zan, baña, barriz barriztuta Federación Vasco-Navarra de Alpinismo izenaz indartsu ta kementsu jarraitzen dau kiroldar eusko gaztedirik zindoenak, txindizalekeri ta ustelkeriatatik alde darabille gaztedia beren magalpian. Zein kirol egokiagorik gure gaztediarentzat mendigoizaletasuna baiño?

ALTUNA'TAR JOSU

EXPO 70

OSAKA'KO ERAKUSKETA

Erakusketako sarreran margoz beteriko ikusgai bat aurkestuten yaku. Umeak, gazteak, gudariak, neskatillak eta adiñetan zaarragoak, bakoitza bere yantzi bereiziaz. Onek danak bere zuzendarien atzetik yartzen dira, baiñan alan eta guztiz bere, egunean 200 gizaseme baiño giago galduten dira.

Guk ogetabostak bere bai sartu ta Eguzki-dorreko zelaian bostak arte geratuten gara. Emendik baratz aunditzarra begiztaten dogu. Emen 70 erriek euren bereizitasunak erakusten dabez. Dolarretan 550 milloi eralgi (gastau) ei dabez, eta bideetan, ostatuetan, iragarkietan, laukoitza. 41 milloi gizasemek erakusketa ikertuko dabela uste da.

Errobot batzuk ikusten doguz, baiñan au gitxi da an erakusten diran asmakuntzen aldean. Gizadiak gauza ikusgarri asko ikusiko dau, atomiko iskilluek ludia ondatuten ez ba'dabe.

Eraikikuntz ezbardiñeko uriak, baratzen eta ibaien artetik yagiten dira. Etxetako garbi-geletan norbera garbituta izan daike yazkiak garbi-ontzietan lez. Gero mai bakar bat daukan sukalde batean bazkaria. Botoi batzuk estutu ta or agertuten dira: oztaillua, yanariak, azpil-garbikiña ta abar. Gero atsedenaldia areto illun batean txorien txintak eta aizeko suzmurrek lagunduta, odei bigunak eta adar-gerizak agertzen dirala.

Gu geldirik, kale ibiltari Errusi'ko erakustetxeraiño eroaten gaitue. Beekaldean, Mosku ta Leningrado'ko ikusgaiekin, Lenin'en argazkia. Gero ikastoleetako umeen eskulanak eta ikastola-nagusitakoak bere bai, asmakizun barrienak eta izarlarien ontzia.

Goiko mail batean, Ama Birjiña'ren ikono-margozki batzuk eta santuenak bere bai. Beste goiko mail batean narruzko berogarri ederrak edurrez estalitako basoen artean. Baiñan gure arritasun aundiena antzoki batean yazo zan. Emen ballet baten ordez, sobietarren yantzi-erakusketa bat, andereiño urredun batek abestuten dauen bitartean. Onen eta kapitalisten arteko ezbarditasun bat agertzen da: emeko erakustzaillek kapelarik ez darabille.

Sortalde'ko erakustetxe batzutan, ebano ta marfillezko gauza bakanak begiztatzen doguz, bai ta arnariak eta azpi-oialak bere. Arabi'koan, Meka'ko ikusgaiak. Portugal'ekoan Xabier'tar Pantzezka'ren garaiko Nippon'eko itxas-aldetara eldu ziran itxas-gizonenak. Kanada'koan zaldizko ertzaiñak. Prantzi'koan, teknikako aurrerapenak eta Paris'eko arinkeriak. Guretzako arrigarriena baiñan, Giristiño erakustetxea, bere «Yaungoikoa Maitasuna da» iragarkiaz; emen bake ta nasaitasuna nun-nai nagusiak dira. Ormetan ez dago besterik iragarkiak eta Batikano'tik ekarritako ormaoial aundi bi baiño. Iru gauza nabari dira goiko maillean: Idazteuna, Yaungoikoa' ren itza bezelakoa; aldareko maia Kristo'ren bertan-izate lango, ta organua gizonaren otoitzako ezaugarritzat.



Benetan yakingarria da, erakusketa bide dala, Katoliko ta Protestanteak erakustetxe berean batu dirala, eredu bat emonaz, aurkeztuten bait-dira erlijio berberako itxuragaz. Batzuk Kristau erakustetxe'ko adelua (inauguraziñoa) eragotzi gura eben, Expo'ko elburua «Aurrerapen eta alkar ulerpena» zalako, baiñan alakoak ezaguera gitxi kristau gaietan erakutsi eben, erakustetxe au betiko egiaren ezaugarri bezelakoa da, gizona aurrerapen eta ogiz soillik ez dala biziten adiaraziaz.

Aita Eguzkia'ren aretoan gure izarrari almen ezartzen dautsoe, ara nun: gure yaiotza, azibidea, izaera, egokiera ta abar, iragarki aundietan igerkizun onek erakusten dirala: nora doa gizona? Zein da bere etorkizuna? Zer gertatuko yako gizadiari?

Igerkizun onek Kristo'ren mezuan erantzuna dauke. Gizataldeak ez bediz etor soillik Suiza'ko erakustetxea bere argi ikusgarriak ikertuteko; Kristo'ren irakaspenak be ikus dagiez. Gure ikustaldian Xabier'tar Pantzezka'tzaz gomutaten gara, ta aurrean yatorkuz berak egindako ainbeste konbersiñoak, beste izkuntzakoa ba'zan eta ain bide urriak garai artan ba'ziran bere.

ESKARNE

ZUBIRI

LASTER ZABALDUKO DA

Ercilla, 30

ORMAZA

Kantauri itxasoko arraiñ onenak, neurri guztietako ontzikoetan.

BERMEO-N
MUNDAKA-N

«Mairako erreza»
«arraiñak Ormaza»

Denda guztietan eskatu

HELDER CAMARA:


GOGORTASUN BAKETSUTIK

Egun baten, Campos Eliseos deritxon kale zabaletik niñoiala, Concorde Plazatik Etoile'n dan Garaipen Arkuraño, bitarte aretan auxe bururatu yatan: Paulo VI'garrena, Eleiz Katolikuaren agintari nagusia, Paris ikustera ba'letor, lortuko ete leuke iñok jaramonik egiterik? Batzuek, uri orren estualdien gora-berakadetan legokela, uste izango dabe.

1967'ngo. Jorraillean, Paris'ko izparringiak barri au ekarren: Dom Helder Camara'k «Mutualite» etxeko aretoan itzaldi bat izango dau. Eskuratu neban sartzeko txartel-dei bat. Sartu aurretik, iru ordu luze egon nintzan itxaroten, jendetza ikagarri baten tarteko. Entzun neban aren itzaldia, alboko gela baten, lurrean ezarrita.

Joan dan Orrillaren 26'an, Paris'en, Kiroletako Jauregian, 10.000 gaztek txalotu dabe, gizon txiki au. Sotana baltzez jantzia, zurezko gurutze bat bularrean, eta odolez gorritutako larrosa bat eskuetan ebalarik.

«Neure gotzain gorria» deritxo Paulo VI'garrenak.



NOR DA?

Dom Helder Camara, Brasil'eko iparsortaldean, Fortaleza deritxon errian jaioa da. Amairu anai-arreba ziran. Ogibidez, ama ume-ezitzaillea zan, aita izparkaria. Ogetabi urteko zala, abadetu zan. Rio de Janeiro'n egin ebazan 28 urte abade lanean, txaboletan bizi ziranen artean ebanjelioa ereiten. Laguntzailletako Gotzaiña zala, eleiz bateko sakristian jarri eban bizi lekua, Recife'n, «goseak ildakoen auzoa» eritxonaren biotzean. «Mixeri gorrian ziranen artzai» eritxoen orduan bertan. Ezeukan onik, zuzentasun gose-egarri ziranak poztu ta adoretze utzaz. Zirikatzaille, akulari biurtu zan, gizarte egoera batzuk aldatu bear larria egoala esanaz. Egunero jatsiten zan, gizonok burruka egin oi dogun lekuetara, nekea ta kezka diran tokietara. Askok ezin dabe iruntzi, eta suminduta dagoz Recife'ko gotzain onen gogortasun baketsuaz.

ZER ESAN DAU?

Brasil'en 12.000 politiku direala giltzapean, esan dau. Brasil'en zigorra erabilli dala barrukoenak be iñori esanarazteko. Berak eztauala iñor joten ikusi, baiña ziur dakiala jo dabezana, eta mundu guztiaren aurrean salatzen dauzala bere errian egiten direan bidegabekerizko indarkeriok. Esan dau, badirala erritarren artean naztezaleak eta zirikalariak. Baiña etor daitekeon arriskuari jaramonik egin gabe, itaun au egiten dau zindotasun eta gizontasunez: Zer dala ta txiroen gogor jokatze au? Eta erantzun au: gogor jokatze au, gogorkeriaren aurka dator. Mundu zabaleko bidegabekeria da gogor-jokatze guztien iturburua.

ZELAN JOKATU GURA DAU?

Dom Helder Camara'k, itxaropenez ikusten dau baketsuen gogortasuna. Itzalez begitzen dautse guda edo indar-bidea artu dabenai; politikeriz munduan eratutako zoritxar eta okerrak kentzeko diarduenai. Alan be, bere ustez, galduak dira, ondatuak, gogortasun baketsutik kanpora dabiltzanak. Ondoren onenaren izenean, kristau eta biotz oneko gizonen indarra aintzat artuaz, dei larri bat zuzendu dau, indar ori, gaurko munduaren gidariei aurpegia emoteko erabillia izan dedin.

Helder Camara'k, jainkozale agertzen dau bere burua, eta itxaropen bat erein nai dau: mundu au egin geinkeala, zuzentasuna ta azkatasuna gizarterako dauzan Erri.

URGOITI'TAR JOSEBA

EUBA

JAIAK

Iralla'ren 5'ean-Larunbata

Arratsaldeko 7'retan asiko dira, erriko txistularien biribilketakaz.

9'etan, euskal abeslari onein ekitaldia: Villaro'ko Patxo; Bilbo'ko Jose Angel Goyenaga; Zaldibar'ko Gau-Txoriak; Euba'ko IBAIAK; Lourdes Iriondo ta Xabier Lete.

Ondoren, erromeri alaia.

Iralla'ren 6'an-Igandea

Goizeko 8'retan, txistularien biribilketak; 11'tan, Meza nagusia ta onen ostean Berna'ko «Ariñ-Ariñ» dantza taldea. Ondoren, asto-lasterketa, sari ta guzti. Jarraian Soka-Tira.

Arratsaldeko 5,30 (bost eta erdietan) 2'garren dantza-sariketa, bikotientzat, ondo saritua izango da. Onetara datozaneri 200 laurleko emongo yakez eskupean. Orren ondoren Euskal-Abestien Txapelketa Umeentzat. Saritu au be.

Illuntzean erromeri aundia.

Iralla'ren 7'an-Astelena

12'etan, Meza; auzunean ildakoen aldez. Arratsaldeko 5'etan ume-jolasak. 7'terdietan, Auspo-Soñularien Txapelketa Umeentzat. Saritua baita.

9'etatik aurrera, erromeria, soñulari ospetsu batek eraginda.

MUNITXA'TAR LOURDES

Orra liburu eder bat, euskal-antropologiatzaz, bilbon ospaturiko errien-arteko lenengo astean jasoriko lanekaz

«La Gran Enciclopedia Vasca» ospetsuak, irarkolara bialduta daukaz, aitaturiko Aste orretan egin ziran itzaldi ta enparauen idaz-lanak. Joan dan udabarrian, Bizkaiko Aldundian ospatu ziran itzaldiok. Liburu eder onetan ezarten doguz egilleen izenak. Liburu au eskatzen dabenei, gordeko dautsegu. Eskabideak egin beitez zuzenbide onetara: «La Gran Enciclopedia Vasca», c./Prim, 43-3.º, Bilbao.

EUSKO-GIZA-IZTI edo antropologia. (Bilbon, jorraillaren 6'tik 11'ra ospaturiko, Errien-Tarteko Lenengo Astea). Euskeraz, gazteleraz, prantzeraz, ingelanderaz, errusieraz eta japoneraz:

—**Kondaira aurreko euskal-gizona ta bere gaurko egozpena.**—Barcelona'ko Ikassailleko Jakintzan, Giza-Iztiko irakasle dan José María Basabe'k egiña.

—**Odolezko agerpenen izatea gure errian.** Au, José Luis Goti Iturriaga'rena. Sendagai ta Osatebakintzako osagillea.

—**Sikolugu arazoak, gizartekoak eta legezkoak, Euskal-Erriko sorginkeriari buruz.**—Julio Caro Baroja'rena. Madrid'en Etnologi Erakustokiko zuzendaria.

—**Euskotarren pentsaera ta arpegikera.**—José Manuel Barandiaran'ena. Naparroako Ikastetxe Nagusian, Euskal-Etnologi saillean irakasle dana.

—**Euskal-Sikologiaren bidez, Bertsolarien argitasuna.**—Manuel Lekuona'rena. Euskaltzaindiko lendakaria.

—**Euskal-abestien morfologi ta berezitasuna.**—Francisco Escudero, Donosti'ko Eresi-Ikastolako zuzendariarena.

—**Gure Erriak legeari buruz daukan zentzuna.**—Adrián Celaya'rena. Deusto'ko Ikastetxe Nagusian, Eskubide arloan Doctore ta irakasle dana.

—**Kondairako mende bitan, euskotarrei begira.**—Andrés E. de Mañarikua'rena. Deusto'ko Ikastetxe Nagusian, Eskubide arloko Ikasali-buru, ta, Bizkaiko Kondairari dagokionez, irakasle dana.

—**Izkuntza ta Jakintza.**—Luis Mitxelena'rena. Salamanca'ko Ikastetxe Nagusian, indoeuropea deritxon Ele-jakintzaren irakasle dozu, ta Donostian, «Julio Urkijo» Elkarteko zuzendaria.

—**Euskaldunen Arri-aro ta Erdi-aroatzaz gogoketa.**—Ignacio Barandiaran'ek egiña. Zaragoza'ko Ikastetxe Zarrean, Kondaira-irakaslea.

—**Bilbotar eta Bizkaitarren arteko betiko bekaitza.**—Manuel Basas'ena. Bilbo-Udaletxeko idazti-zaia ta Bilbo ta Deusto'ko Ikastetxe Nagusiko irakaslea, Aintziñako Kondaira arloan.

—**Legen-eria, Euskal-Erriko erromatarren artean.**—Juan María Apellaniz'ena. Bilbon, Eleiz-Barrutiko Erakusketan zuzendari, ta Donosti'ko «Aranzadi» Elkarteko batzarkidea.

—**Euskal-arrantzaleak Terranovan, XIII' garren aroan.**—Vicente Palacio Atard'ena Madrid'go Ikastetxe Nagusiko irakaslea.

—**Euskal-Errian geure arteko artu-emona.**—Miguel Angel Astiz'ena. Izparkaria ta Euskerazaleak Elkarteko batzarkidea.

—**Aurretikako ikasiak eskualde baten.**—Leopoldo Zugaza'rena. «Guerediaga» ta «Euskerazaleak» Elkartietako batzarkidea.

—**Aintziñako Bizkai-euskalkiatzaz dakiguna.**—Alfonso Irigoyen'ena. Euskaltzaindiko batzarkidea; ta Ele-jakintzako irakaslea Deusto'ko Ikastetxe Nagusian.

—**Martínez de Landecho bizkaitarraren nortasuna, Guatemala'ko lendakari bezela.**—Carmelo Saez de Santamaria Josulagundikoa, Deusto'ko Ikastetxe Nagusian izkuntz arloan zuzendari, ta Pilosopi ta Ele-eder saillean irakasle dana.

—**Gipuzkoako mendi-gunetan, adarduntzarrak.**—Jesus Altuna'rena. Donosti'ko «Aranzadi» Elkartean, Paleontologi Saiotegian lan dagiana.

—**Euskal-erti errikoiatzaz gogapenak.**—Luis Pedro Peña Santiago'rena. Donostiko «Aranzadi» bazkunan Etnologi salleko lendakaria.

—**Euskalduna kiroletan.**—Fernando María Mugica'rena. Osakai arazoetan sendagille dana.

—**Sorginkerizko erabideak, gaurko kistar-egiñetan.**—Angel Irigaray'rena. Osakintzako doctore ta Euskaltzaindiko batzarkide osoa, dozuna.

—**Artzai-bizitzaren zertzeladak eta larre-aldaketak Euskal Errian.**—Fermín Leizaola'rena. Donosti'ko «Aranzadi» Elkartekoa Etnologi saillean.

—**Kell eta Duffy odol-agermenak euskotarragan.**—Jesús Moya'rena. Bilbo-Ikastola Nagusiko irakasle, Bizi-jakintzako ikastolan.

—**Euskal-Erriko Arri-aro ta Erdi-aro aurretiko barriak: Naparruako Urbasa ta Olazagutiako meatzak.**—Enrique Vallespi'rena. Naparroako Ikastetxe Nagusian, edesti-aurreko saillean irakasle dana.

ERRIETAKO BARRIAK

Bermeo

Arrantzalien kezkak

Antxoeta ona ez dala izan? Ba, atunetie be ez dator nai dogun lez. Garagarrillaren lenengo egunetan urten gendun geure errietatik itxaropen andiaz.

Lenengo lana izan dogu, Prantziko kostetan karnadie egitea, baiña an kosta jagoleak ugari. Zazpi txalupa atrapau ebezan egun baten. Beste guztiok atzera egin gendun, alako zigorraren bildurrez. Au alde batetik, bestetik ikusi au. Gure agintariek ez dauskue laguntzen ango gora-berak aztertzen, eta gaiñera emen beda ipiñi dauskue agosturartien. Esango dabe, au antxoa-kumie zaintzeko dala, bestela amaitu egingo litzakeala ta. Ez da txarto esana; baiña onek ozkak ez dira oraingoak, euzkal arrantzalien artien. Naiko urte igaro dira tope bat, 8.000 Kgmukoa ipiñi genduanetik. Orretarako naiko burruka eginda agintari eta arrantzale erdaldunekaz. Alperrik izan Kantauriko txalupa talderik azkarrenak. Gu gertu giñan arazo oietan zaindari, agintariak eta erdaldun arrantzaliek geure aurka euki arren, produziñoa gitxitutzea zala ta.

Orain datoz antxoetako guduak Prantzekaz eta guztiok euren aurka, gure itxasoetan arraiñik ez dagolako. Eta iñok ez dogu esaten, areik eurena zaintzen dabiltzanik.

Donibane Loitzun-en, 34 txalupeko arrantzalek legorreko langilleak lagunduta, gure aurka agertu ziran kalean. Paris-tik erantzuna beingoan: gudu-ontzi bi, egazkin bi eta 3 kosta jagole.

Guk barriz, Ondarrabin asi ta Galitzirañoko txalupa guztietakoak opor egiten etxean gelditu, 15.000 gizon, zeozer lortzekotan. Dana ezerezerako. Erantzun barik itxasora. Olantxe orain karnadie nun egin barik, galazota. Txalupa biolojiku bat bear genduke beste erri batzuk daben lez; olan jakingo geunke arraiñen sortukera ta bizikera. Orduan arrantzaliok lazaiago ibilliko giñake, lana ziurrago egiñaz.

Baiña gu, ez gara gu ta...

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONIK (ITXASOTIK)

Arratia

Euskeraz ari izaten geranean Lamindao, ta erderaz diñardogunean Lamindano deitzen dautsagun auzune bizkarrean izan barria naz.

Dimako Bentatxuri ta Areatza (Villaro) bitarteko konkorra da. Antxiñako aldietan sorgin-lamiñen toki entzutetsua, aspaldi ontan ostera, txapel-gorrien urreroko batzar-tokia.

Sorgin-lamiñek, alkarren lengusu, ondatu ziran; Anbotoko Mari Urrakaren larririk eztogu, ta bertan batzartuten diran txapel-gorriak urterik urtera urritu. Antxe dago baiña Madalena'ren baseliza ongi zaindua, garbi, txukun eta dotore; zerurantz jasorik gurutza, ta. ori ezkil edo kanpai dindiliz dituala, eta ondotxoan ormaz esitutako landa, millatsuna, gizon biziaren barruan erruldikutua egiten dauana, ixileko otoienan jartzen gaituna, geroko geroagaz arregatuten gaituna, auzotarren azken atsedentokia.

Baketsu, bakar eta astitsu izan naz ta, Lamindaoko illerian, 26 gurutz dira aitarri besoak zabalik, eta zaarrena 1940 goa. Larrea-Egia anai-arreba umemuen oroimenez jarria. Illabeteren bitartean il ziranak doguz.

Oraintsuen eortzi edo illobiratua, Latxatxa-Goikuria, 1969'gn; eta ildakoen artean gazteena Artabe-Iturbetar Jose Mari, an illabetekoa.

Zergaitik ikusten doguz baiña, euskaldun utsak baiño besterik bizi izan eztan illur aretan, ainbeste ta orrenbeste aquí yace, aquí descansa, en recuerdo de una oración por...« a. ta. a.? Norena ezta? Iñorena bez. Geu bakarrik gara munduan, geu etxekalte. Geu, besterik bat ez, euskal nortasunaren ondatzalle.

Gaixo bardin-bardiñak jota ikusten doguz, bai-ta, ilten diranak eta lenengoartzeak gogoan izateko egiten dogun orritxoak. Noiz arte iraungo dau guk tximel-igartuagaz bizi dan erriak?

Lamindao-mendia euskera-lur apatza izemonkorra izan daiten, bat bakarra bultzen yaku bizitzan izan zan baxen ikaldun, 89 urtedun zala il zan eta errterina'tar Blas izan zana berbera da, ai.

LANDAJUETA'TAR A.

Zaldibar

Ez dala ilko

Irrintzi bulartsu batek gure belarrieri bere zaratia adierazo oi dautson lez, gure biotz barruan nabaitu dogun atsegiña AGUR euzko illeroko sorkeria dalata, goi goiko mallakua da nere eretxi betian.

Euzko semeok, ez-bairik gabe, ezaugarri askoren jabe izanik, danetan urtenena, edergailurik ederrena, euskera gure izkuntza bardingabia dogu.

Baña egitasunez adierazota, oben guztiz astunak oinperatuta gaukoz eta au autortu bearra tamalgarria da, neurri gabeko mingarria.

Izkuntza onetzaz ez daigun aitzakirik billatu esanagaz: mintza itsuzia dala; berau mintzatzia oso gaitza dala; gure tartian bakarrik erabiltzekoa dala; beste edonon zabalpenik ez dabela eta abar.

Zorionez edo txarrez, urte batzuek itxas andiko urrutian dagon laterri baten egona naiz eta edestitxo au opaldutzen dautzudala, nere abo barruan gozoki batek emongo liteken lez gogarpen bat sartu da nere gomutara.

Askotzaz ziran gure euzko anaiak eta aldra aretan gogortasun guztiaz nabaitu neban bakotxaren nortasuna.

Jakiña, aldra orretan, banaka batzuk ezkongaiak be ba ziran, baña nere begirapena emaztedunekana zan, ganera, eurok zituen seme alabatxuak alderdi aretan jaio eta bizitza eruaten jarraitzen ebelako, gëiago, euroen aita ama ta asaba zaarren lur alde maite au iñoiz be zapaldu gabe ziralako.

Usaindaturik nere adizkide geienen seme alabatxuak alkartzen ziran aldi bakoitxian, euskera gordiñan mintzatzen zirala, ez neban arakatze andirik biar izan zer joera eben euroen sendietan, ziur jakiteko.

Agirian dago, euskeraz mintzatzeko adorerik txepelena, begiko lur onetan bizitza egiten dogunon tartean dagola, baña jakinerazo bear dotzuet... au tamala!... au samiña!, zer gertatzen da?

Benetan, euskera batasunaren oñarria, lenbailen antolatzen gabiltzala. Aurrera bide txalogarria? Begiak zorrotz ipini daiguzan eta beriala ikusiko dogu.

Asiera emon dautsagun, euroen orduak igarota ikastolatik ateratzen diran umetxuekin. Bai sarreran, bai ateratzen diranean euroen orduak beteta, guztiak aldra lodian jarrita, ikusten ditugu izkera batean. Baña ez da guztia arritzekoa.

Ondoren baita, begira daigun gure alderdian landolak geituaz bide, zenbat gure izkuntzaren ez jakiñak diranak datorkuzen, ta gure apaltasunez, edo askoren eretxiz, ezitasuna da eurak daben eran mintzatzia.

Auxe da gure gaitzik garrantzidunena. Ibillera txikitxo bat egiten atera gaitezan saleroste etxetik, jatetxe, edaritegi eta abar ta belarriak ipini daiguzan jakiteko bat bakar bat ez jakiña dalako, nori belaunbiko jartzen garan. Zergaitik? Berak ondo ez dakiena bäño, obeto dakigulako?

Geiago, minduta, larregi lotsatuta, autortu biar dodaña ta esan bearra: baita goi mendiko basetxietan bizi dan gaztediak opor egiten alegintzen dira euskereatzaz, ala be gure ele kutunak sustrai gartsuak nun nai ditu eta berari dagokion ospearen aldezleak beti tinko, kementsu.

Ori zorionez; iñork guzurtatu ezindako egia da, benetan zoragarria, txalogarria, Itxaropena...

Euskerea sekula ez dala ilko

Nere eretxi barruan, naiz ta alde batetik bestera euskalerri barruan euskerak aldakuntzatxoren batzuk dituan arren, jatorritik datorkigun euskera ederrakin toki guztietan egoki aditu izan gara eta orain... zegaitik matxinada negargarri ori euskera batasuna egin bear dala bidez? Ori da baratzian dagon lore politari udako legorte egunetan bere edertasunaren aldez jaurti bear dautsagun ur garbia? Nere ustetan ez.

Ezkontza

Aspalditik maitatzen diranak lez, aurkitu ziran Arbazegi'ko erri eleizan ta, zoriontasunez beterik alkar lokarritu ziran senar emazte, gure adizkide maitagarri diran Zubigarai'tar Joseba ta Alberdi'tar Pillare.

Uri aretako eleizan euroen onespenak artu ondoren eta sendi, lagun urko ta enparauak batzartuta, Gernika'ko jatetxe batean, agurtatu ziran uri nagusiren batzuk ikertzera.

Gogoz gagoz, euroen biurkeran, arrera on bat emonaz, besarkada maitekorra emoteko, ta ori gutxi izanik, irabazia daben lez, bizitza guztiko zoriontasuna opaltzeko. Bide onetatik nere zorionak!

Gaixuak

Aldiz batera osatebakuntza egitera beartuta aurkitu dira Bilbao'ko osatetxietan, Bastarrika'tar Kontxa, Berasaluze'tar Ane Miren eta Arteaga'tar Eskarne.

Guztiok, osasun onaren jarraipenez agertu jakuz ta ori guretzat pozgarri dan mallan, izan dedilla eurontzat ta sendikoentzat zoriona.

MAORTUA'TAR MARTIN

Zeanuri

Joan zan illeko AGUR-en orrialdeetan zerbait idatzi neban erri onetzaz, eta bat baiño geiago izango dira esango dabenak: errian doguz idazten dakienak, eta Bilbon bizi danak arduratu bear geure-geureak diran barriak azaldu ta Zeanuri bizirik dala adierazoten.

Asko poztu nindun Anaitasuna deritxon orritxo tartean agertu zan idazle barriak eta beraren idazlanak.

Argi ta garbi autortu eban, Undurragakoak entzun eben ezezko igarra, agintariak, erriko semeak agoz esana, onengana aurkeztu ziranean euskal-girozko jaia egiteko baimenaren eske auzuneko jaiak ziran-ta.

Nire ustez benetan negargarria, Zeanuriko Undurragan erriko semearen agindu garratzez geure-geureak diran jaiak galerazotea, ezereztutea.

Ba-doguz agintariak, alkateak, erdeldunak izan arren, erriaren morroi izaten dakienak, jaiak antolatu edo eratuten lagundu ta diru-laguntza eskeintzen dabenak; naiz-ta oso bestera jokatu gure errikideak. Jaunak: noiz arte era ontan?

Agintedun eta onein inguruan zabiltzazenok: euskerea iturburu garbitik datorrena dogu, eta oni dagokion guztia geurea da. Zergaitik ba polikatu? Zergaitik esaten dogu «gora Euskalerria» geu bagara beraren makillatzalleak?

Apurtuta baiña osorik

Lau auzotegi doguz ikastoladunak, eta aldi baten onein ate-buruetan, itz oneik irakurri geinkeazan: «Eskuelas de Barriada», «Auzo-Ikastolak».

Apurtuak izan ziran noizbaten lau ikastoletako euskal-itzak; utsuneak baiña... an irauten dau osorik. Apurketa edo puzkaketa lana egin ebenak, aldi aretan gazte zoro mizkeak baziran be, orain ezkero gizon oiñarrituak izango dira, eta Jaun Altsua damututakoen zai dagolarik... azelako barru-bakea ta erritarren esker ona irabaziko geunkan, azterketa sakon-sakona egin, erri-zuzendariari laguntza eskatu ta itz berberak lengo tokietan ikusiko bagenduz.

Guztiok doguz akatzak, bai-ta bakezko bideak be, bakoitzari berea emonik alkar maitatuz biziteko.

ANGOITIA'TAR B.

Zarautz

Nun gure errian aña euskal-jai? Aurten ditugunak ez dira makalak. Dantzari eguna, Aurren eguna, Euskal-jai Errikoia eta Nagusia. Asi Dagonillaren 30'ean eta Arantzatzu'ko Ama'ren egunerarte bata besteren ondoren.

Lenengoa, il onen 30'ekoa, bazter guzietan dantzaldiak. 2.000'tik gora etorriko omen dira Euskalerri osotik. Oiek beteko digute erria, alaitasunez gaiñezka jartzen digutela, oiek eta oiek ikustera etorriko diran zar eta gazte.

Aurren jaia urrengo. Egun onetan ere amabost urtetik berako erritar eta udatiarrak, beren jai berezia izango dute. Urtero bezela, Santaklara'ko meza polita, kalejira, dantzaketak, Iñurritzako ibillaldi, dantzaldi eta ariñiketak. Gaztetxoak nekatuko dira baña laister lenera etorrita gogor jarrai, gurasoak illuntzirako lertuak ikusten ditugu, pozik ala ere.

Iralle'ko bederatzian, nausien euskal jai jator eta indartsua. An bai dabillela sasoia eta gordintasuna. Aiek bai neskamutil eta guraso gazte jatorren eten bearrak. Biaramonean ere jai bear genuke izan, izerdiak eta zain lotuak atsedentzeko.

Eta sarritan pentzatzen jartzen nazaizu, askok uste dutela onelako jaiak berez-edo sortzen direla. Ea mutillak, sartu esku ori patrikan eta bota laguntasun apur bat, ortan zintzo jokatzen duten gure Azpeitia eta Bergara eta onen laguntzaille jatorrei, bideak zabaltzeko.

Orrenbeste zuri ere, erbestetik zatozen orri, eskar onez ara zer salatzen dizudan, Zarautz'en ederki jan dezakezu, neurrian egarria kendu eta Alejandroren emazteak egiten dakin akeita bezelakorik ez dezu sarri artuko.

EXTEBAN

Galdakano

AGUR'en orrialdietara illero zerbait ekarri nai dogu-ta, ara oraingoan zer diñogun: Galdakano'ko eleizarik geienetan, zortzitik seitan, euskerazko jaupak doguz, mezak, batzuetan bi be bai; mezarik ez daukaguzanak, Firestoneko errizkan, bertako apaizak euskera ardurarik ez dabelako ta Zuazo'ko txadonean, Dinamita'ko zuzendaritzak ez dabelako nai. Erriko txadon nagusian baña, ez genduan euskerazko meza bat baño, jai egunetan, gero lortu gendun jai-egun aurreko arratsaldetan, zazpiretan, beste bat ospatutzea. Egia esateko, ez gendun eragozpenik aurkitu txaunburu ta apaizen aldetik, orrenbesterako.

Gure ustez, txarrena orain datorkigu; ainbeste aleginez lortutako meza orretara, bearrezkoa zan orretara, notintza exkasa joaten da, erdi utsik aurkintzen dogu txadona, ta orrek ilaun bat dakarkigu: Num dira euskaldun onak antzera agertzen diran galdakanotarrak, jaupa ori ta besteak notiñez ganezka ez beteteko? Ezin leuskiogu ba elizkorrak ez diranei dei egin, nai-ta orreek be, euzkotar zintzoak ba-litzakez, alegindu bear leukee euzko arazo guztietan alde izaten. Baña beti mezatara doiazan euskaldunak eta batez bere, Euskalerria maite dabela dirauskuenak, zergaitik ez doaz euskerazkoetara?

Orren ustela ete-da orreen euzkotasuna? Orren koldarra ete gure ekiñarekin goraldugarri oitura ta eskubideen euslariak? Erritar maiteok, jaurtin daiguzan alde batera nagikeriok, idegi daiguzan begiok, eta besterik ez ba'da be, alegindu gadizan «lege» barruan aurkitzen diran euzko arazoei eutsi eta indartzen, iñoiz eta berandu damutu ez gaitezan.

* * *

Azkenengo urte onetan legez, aurten be atzerri zear ibiltaldi bat egin dabe, erritar Andra-Mari euzko dantza taldekoak. Garilla'ren amarretik ogeita irurarte, Doisland, Beljike ta Frantzi aldean amar dantzaldi egiñaz. Zetan esan be ez, or zear doiazan guztietan legez, osperik andienakin artuak izan dirala erri eta toki guztietan.

Esan dauskuenez, ibiltaldi ori neketsu xamarra izan yake, bide luze aundian egun gitxiren barruan ibilli ta asko dantzatu egin bear izan dabelako, ori ta guztiz be, pozik itzuli dira errira, barriz be gorengo mallan jarri dabelako Galdakano ta Euskalerriaren izana, bertoko euzko dantza garbi ta kementsuen bidez. Txalogarria da izan be, gure gazte zintzo onein jokabidea. Orretara jarraitu beti, ez yatsue damutuko-ta.

BASA-JAUN

Usansolo

Udea da-ta, jende asko oporrakaz dabil, bai lantegietan, bai salerosteetan, ta irakasle ta ikasleen artean batez be. Ori dala-ta baña, ezin leikez guztiz geratu landintza guztiak, baton batzuk ekin dautse lanari, ososoan ez ba'da be utsunea betetan, ta beste ainbeste egitera gatoz gu be, ia Julene idazle azkarrak, bere oporralditxoa igarotean AGUR'en itxi daben utsunea zelan betetan dogun. Usansolo'k eta bere inguruetako auzuneak merezi dabelako aldizkari onekin izan daben arrera ona gaitik; iñon baizen ondo artua izan da-ta.

Errien aberastasuna ez da txinditza bakarrik, besterik da, aurreragoko zenbakian Julene'k ondo esaten eban lez, erriak beste aberastasunik asko euki leikez txinditsua izan ez arren; bere izkuntza landua, bere lege bereziak, bere egikizun gizakorrak, bere jakintza ta, zelan ez! bere nortasuna. Ta usansolotarrak onetatik zerbait ba-dau, nortasun berezi-berezia. Galdakano zabalean bear ba'da beste iñork baño aundiagoa. Bai, bertan be agertu dira «ardi baltzak» eta, non ez? Usansolotarrak baña, geienak izakera jatorra dabenak dira, sartuten diran arazo guztietan ta euzko arloetan batez be... orretara erakusten emon dabe oraingoan AGUR'egaz, bear ba'da euren euskal egarria pizkat asetu dabelako. Bear bearrezkoa genduan euskerazko aldizkari au.

Julene, igaro ondo zeure oporrak, senar ta seme-alaben onduan, zure eleiz-barrutiko euskeltzaleak ez zaitue aztuko-ta.

* * *

Erriko arduradunen errizaletasuna era askotara erakutsi leike, nai ta batzuentzat gauza bakunak, txikiak izan. Erriarentzat bear-bearrezko gai asko dirala ba-dakigu, baña orren artean bide ta txaide onak izatea be ongarria da. Orretara uste dabelakoan gara erriko Endoreak be, azkenengo urteotan auzo-biderik geienak eta erriko txaideak ondo apainduak izan dira; oraingoan Usansolo'ko txaideak izan dira ondo baño obeto tolostuak, leenago batzuek apainduta aurkitzen ba'ziran be. Beraz, zorioneko dagoz usansolotarrok.

MENDIOLA

Bermio'n: Eusebio txistulariari omenaldia



Eusebio sukarrietarren erdian

Garagarrillaren 7'an, San Fermin egunez, Jaialdi eder bat izan gendun Bermio-ko batzokian. Geure txistulari nagusiari omenaldi bat egin geuntzan. Erriko soiñuzale guztiak batu giñan orretarako. «Erriko lagunak» (100 txistulari gaztetxo), Lupe ta Asier Itxastarrak, Zabalondo'tar Josu, Fradua'tar aita-alabak; Ana Tere, eta Sukarri taldeko abeslariak. Sukarriko iru neskak «Belentzi'ren pozak» antzerki bermiotarra agertu eben. Oso politto egin zan guztia. Amaika barre santzo ta txalo entzun zan. Jaialdiari asiera emoteko, Sukarriko gazte batek beste guztien izenean emen datozan berbak esan ebazan:

«Atzo eguerdian eldu yakuz eskuetara jai au egiteko baimenak. Guk leenago egin gura gendun, arrantzaliek etxean ziranean. Baiña guk ezin al dana baiño. Au dala ta ain zabalkunde gitxi. Alan da guzti be toki au gaiñezka ikusirik: Eskarrik asko etor zareen guztioi.

Zer dala ta etor gara ona gaur?

Geure Erriko seme alai eta biotz andidun bat goraltzeko. Gizon au sarri ikusten dogu geure erriko kaleak zear guztioi barre bat eta poza emoten. Asko maite dau Bermeo eta Bermeok be bai bera. Lagun au, Larrinaga'tar Eusebio, txistulari bikaiña dogu. Nok ez dau ezagun? Alan be, arrokeri bako gizona dan ezkero, ementxe agertu nai neuke, labur, bere nortasuna.

Eusebio, Otxandion jaioa dogu, Bizkaiko azken erria Araba-rantz goazala. Illabete ingurukoa zala, ekarri eben bere gurasoak Bermiora. Arrezkero emen izan dogu beti.

Zer egin dau gizon onek, emen goraldu daigun?

Euskal Erria lur zabalean ezaguna da. Jakin gura dauanak, ondo daki gure barri. Gure Erria ezagutu dauanik barriz ezta egongo Bermio entzun barik. Gure izakera, bizikera, euskera, lebatza, kaia, gure dana, edonungo errietan zabal dabil.

Euskaldunok asko dogu gausa ederrik, bat esateko, geure soiñuak, dantzak, txistua. Dantza ariñak eta garbiak; lurrean antzekorik gitxi.

Eta orrein artean, nok ez dau gaur, gure erriko txistularien barririk?

Bermio-ko txistularien diskuak, edonoiz entsuten dira edonun. Bermio-ko txistulariak ONENTXUAK direana edonok daki. Txistu soiñuekaz eta txistulariekaz batera, Bermio-ren izena eroan dau Eusebiok mundu zabalera.

Onexegaitik geunkan zor bat Eusebio'gaz bermiotarrok.

Beronen lana izan da, semeakaz bat, Euskal Erriko Bandarik onen bat emen guk izatea. Jose Franco soiñulari andiak, irekatsi nagusiak emon eta gero, Eusebiok ez dau bere soiñuzaletasuna iñoiz baztertu.

Guda aurretik lenengo sariak ekarri ebazan Bermio'ra, Durango'tik, Bilboti'k, Donostin-tik eta abar.

Guda aldian, Kataluñan ibillia dogu, euskaldun erbestetuen biotzak alaitzen. Guda ostean, amaikatxu biotz poztu dau, bere semeakaz ibil dan toki guztietan. Onexegaitik, Bermeotar guztien izenean, Sukarriko gazteok, gaurko jaitxu au antolatu dogu.

Gausa andirik ez da izango. Txiroak gara diruz, makalak indarrez baiña biotz betea dogu erri maitasunez.

Eusebio geure erriko zati bat dogun ezkero, seme onak lez goraldu nai dogu.

Ementxe zeuen txalorik beroenak artu dagizan, zeuen aurrera ekarko dautsuet. Eta beste bein entzun al izango doguz, berak jota, txistu-soiñurik bikaiñenak...»

Eusebio'k naiko txalo ta goralmen artu eban; naiko negar egin be bai. Guk barriz irekatsi on bat artu gendun, era batera edo bestera beti, geure euskaldun izatea agertzekoa.

MENDIKO



Larrinaga'tar Eusebio
Bermeo'ko txistulari nagusia

EDESTIA TA GUZURRA

Gizona lur onen gañean danetik gaur arte, edestiak edo istoriaren jazoerak eta ekintza guztiak, aurpegi bi izan ditue, ekintzalle bakoitzak norberaren erara ikusten izan ditu ta, txarrena sarritan, «indarra nundik arrazoiak andik» agertzen izan dira irakurleen aurrean. Zer gertatzen da, gauza bakar bat era bitara ikusten danean? Egia bate na izan bear ta bestea guzurra, egi erdia edo erdi guzurra.

Indarkeri ta gogorzale asko, guzurrez, edestia norberaren erara apaintzen alegintzen dira, maltzurkeria jokatzen «maixu» izan dira. Adi bidez, Hitler'en garaian, bere ministro izan zan Goebbels'ek egiten eta esaten ebana: «Erriaren aurrean guzurrean sarri ekin ezkero, azkenean egia lez artuko dautsu». Ori egin eben nazitarrak, guzurra zabaltzen eta iruntsi-erazten «maixuak» izan ziran eta gudea irabazi izan ba'eben, bear ba'da, gaurko egi asko ez genduan jakingo: esate baterako **6** *milloi judutarren ilketa, nazitar eta aleman guztientzat lotsagarri dan aberekeri ori.*

Baña ez dogu erbestera joan bearrik, emen bertan, Euskal Errian be, edestiaren egia guzurrak estaldu dau geienean. Ez goaz atzeraka urriñera begiratzen; antxiñako jazoerak era bitara argitararatuak izan ba'dira be, erriak aurpegi bi orreik ikusteko aukerea izan dau-eta. Gure asmoa, lengo gizaldiaren azken ta gizaldi onen asierako istorian sakontzea izan da. Ortik asiko gara urrengo zenbakitik aurrera, gure ustez, korapillo garrantzitsua dalako, baña gaur, oar bat egin bear dautsagu gaztediari, edo obeto esateko, oar batzuk.

Lenengo ta bein, ba'liteke irakurle, zure eskuetan etxe-barruko sasi-edestilariren baten idaztitxoak jaustea. Guzurra dirudi euskaldun batek ain maltzur jokatzea, bañà olantxe da ta olantxe artu bear...

Orain arritzen asteko maltzurkeri larregi ikusi dogu mundu onetan, baña erriko seme batek erdiegiekin guzurrak eta ukamenak orrela naztatzeak, antoju ta errebesako gogoa emoten dausku, benebenetan.

Karrera bat amaitu arren, olako gizonak sasijakintsu, sasi edestilari ta sasi-sozialistak dira aurki. Sasi-jakintsu bai, jakintza ta guzurra alkarren etsaiak dira-ta, ezin dira buztartu, ta gitxiago jakiñean egiten ba'da.

Sasi-edestilari be bai, benetako istori idazleak ezertariko menpekeri barik idatzi bear dau-ta. Etorriko diranen artean aintzat artua izan nai ba'dau egia adierazoten alegindu bear da; norberaren iritxiak egiaren aurrean makurtu bear ditu; borondatè ona gitxienez erakutsi bearko dausku.

Sasi-sozialistea; au da gure denporetako fenomenorik ugaritsuena. Gure gurasoak langilleak izan dira. Euren gogo bizi-bizia, lanaren bidez gu beste malla batera, jakintza mallara igoteko gauza izatea izan da. Guda aldian jator jokatu daben gizonak eta agintariak aintzat artu ditue, naiz beste malla baten agertzen ziran gizonak ba'ziran be...

Baña semeak karrera bat egin dabe, euren gurasoak ez-jakintzat bota ta arrotu dira, gorasoegatik «pobres diablos» esan, euskerarik ez dakie-ta, eta ainbat ariñen MG. edo antzeko berebil bat erosi, jakiña, abiada aundiagoaz ibilteko. Noizik bein, langille artean arro-puztuta buru jasoka, iñor baiño sozialista aundiagoa agertu naian.

Orrelakoa dozu, irakurle, gaur gure errietan zabaltzen diarduen istori baten egillea.

Gure erriko gertakizun eta ekintzari kritikea egiteko eskubidea danok daukagu ta egin bearrezkoa da gaiñera. Baña kritika ori, idaz lan orreik, borondate onagaz egin bear dira, egia esan bear da, baña ez edendun egi-erdia edo guzur-erdia; ekintza orretan agertzen diranen izenak, bear dan eran erabili bear dira, izenak loitzea guzurragaz istorigille txarrarena litzake. Nundik sortu jako orri orrenbesteko maltzurkeri ta gorroto? Nundik gizontasunik eza, idazti orreik izenpetu barik agertzeko?

Naikoa dala uste dogu; askatasunaren alde orrenbeste garrazi egiten danean ezin leike Goebbels eta beste fazizten antzera, guzurra guzurraren gaiñean jarri, gaztediari istoria illunkeriekin baltzituta irakatsi, ori, jaunak, ez da egizko sozialistea izatea, fazistea baño. Gaurko giro makurrenaren ume izatea da ori.

Gazteok, aztertu ondo gure zoritxarreko istoriaren bideak, baña orrelako berba-lapikoeri ez jaramonik egin. Bear ba'da biar edo etzi, edozein kapitalista soziedadetan lendakaritzan aurkituko dozue, ta ordurako gaurko asmo «onak» aztuta izango ditu; ez dautsue jaramon aundirik egingo ta gizon orrek guzurti iraungo dau beti. Agur.

ARENAZA'TAR JOSU

ITZETIK GOGORA

NOAN CHOMSKY jauna, 42 urtedun izkuntzalari amerikarra, izkuntzareh bidez giza-ulermeneko jokaera ezagutu gurarik bide barriak zabaltzen darabilgu. Bere erabagiak ain dira ausarti eta benetagarri, beste jakitun asko be, ta ez izkuntza arloetakoak bakarrik, arrituta geratu dira, ta gaur, gizonik billatuena ta entzunena dogu.

Ara zertaraiño eldu dan: Giza-ulermena ta abereena bestalakoak dirala ososoan. Abereak, berezko aldaketa bidez (Darwin), ez dirala iñoiz izketara elduko, orrein garunetan ez ei-dago bide orretatik aurrera joateko aterik ez erro, sustar edo adarrik. Onetatik, beste aren aldaketa asmakizuna ezebezetan geratzen da, gizasemearen garunen aldetik beintzat. Ez da au baña azterketa onen ondoren gorenengoa. Giza-garunetan sartu eta bertako zerzelakoak igartzeko bide barri bat eskeintzen dauskuna baiño.

Edozein gizakumek izkuntzea ikasten dau. Albide orregaz jayo dala ezagun da, bere garunetan zerbait ba-da orretarako gai dabena.

Izkuntzea aldean darogula jayotzen garala esan daikegu.

Ele guztiak, izkera guztiak, gureak eta besteak, oiñarri dabezan eredu gitxi batzuen gaiñean doaz. Ots-ereduak, esakera-ereduak, esadi ereduak. Eta eredu oneik aldatzen doguzela, barriak, beste erabatekoak osotzen doguz. Esate baterako: «Txoriak abesten dau» esana beste oneitara aldatzen dogu: «Abesten ete-dau txoriak?» edo «Txoriak abesten dau bai» edo «Atzo txoriak abestu eben», eundaka onelako aldaketa.

Ta aldaketa orreitan dabil Chomsky'k irakasten dabenaren alderdirik lilluragarriena. Au ta sormena, gizonak ba, izketan diarduala iñoiz esan edo entzun ez dabezanak asmatzen edo sortzen diardu.

Onetatik, izkuntzak, entzute utsetik edo esanaren esanez ikasi danetik bakarrik, jabetu daikeguzala ziñestea guzurtu dau. Ez doguz ba ikasitako esaldi utsak erabilten, areitatik, ereduok aldatuta, barriak sortzen dakiguz, naita lenago entzunak izan ez. Aur batek onenbeste ikasten dabenean eta esaten asi: «Nik kopin bat daukat» eta urrengo entzutean «Kopiña polita da» laster esango dau aurretik entzun ez arren «Nik kopin polita daukat».

Margo orlegiz nere atz txikerra zikinduko ba'neu, «Nere atz txikerra orlegia da» esan daiket eta zuk erraz ulertu, ez batak ez besteak atz orlegien barri izan ez arren. Zergaitik? Biok or barruan nunbait izkuntzaren arauak ikasita daukaguzalako, amaren altzoan geuk igarri barik. Ortatik lortu dogu esaldi egokiak aukeratzeko bidea, eta ikaskizun orreik garunetan nunbait ondo lotuta darabilguz. Beste aldera, izkuntza barriak ikasten diarduenak arauok idaztietan ikasten alegintzen dira, ez dira baña ain erraz garunetako bazter orretan josten.

Izkuntza guztietako oiñarri-eredu eta arauak aurkitu, aztertu ta alkarregaz zein barditasun daben jakitean, giza-ulermenaren barri be jakiteko bidean izango ei-gara.

AIXOLA'K ITZULIA

AGUR

ILLEROKOA
5 ZENBAKIA

1970 - IRALLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ARGI-GOSE

Pentsalari: itxartu adi. Lan-gaiak eskuetan, bide zabalak emon ire ametsai. Gainbera doa uda, aurtengoarenak egin dau. Eguzkia epel, gauak labur, lurra otz. Ondartzetan lagunak urri, soiñak estalduago; ondakiñak ugari. Urrilla da, ta gizakume oro lanerako egokitzen.

* * *

Izadia bellegituaz; gaztain eta pago, orbela dario. Basetxe ondoko intxaurondoak moskolak igiri dauz. Oraintxe bat, bi sarri, urretx intxaur eta gaztain, bli-blaun, atertu gabe lurrera.


* * *

Ikastola igiri da, ta an doaz gure umetxoak bidez-bide, biarko itxaropen. Idazti zorroan sartu oi dabez intxaur banakak, gero lagun artean jateko.

Olagizonak atseden aldia amaitu dau. Itxaso ta mendietako aize ozkirriaren ordez, aurrerantzean, ke baltz sundetsua artu bearko dau. Bizkai-ko oletako atsa, zarata ta biraua. Eskuak latz, odol dario, ur-batuak eta izerdia. Erriaren odola, batzuen emengo zerua. Ori dok zeruaren garratza! Gizona, azke izateko zana, burdiñezko katetan lotua.

Gure nekazariak, arbiak erein dauz iraillean; orain ainbeste bearraren ondorenak batzen diardu; iñurrien antzera negurako gertau: ira eta mukur etxeratu.

Arrantzaleak amaitu dauz etxe-egun eta farrak. Joan dan illean emon dautsagu ba sioñari. Zenbat jolaz, zenbat diru, zenbat ardau? Asko ta asko. Orain, landa berdera barriz, urak erdibitzera. Emengo kosta-errietan izango dan utsunea, nabarmena.



Ni ete naz alper bakarra?

Estudianteak be, uri inguruetara urbiltzen asiak dira. Ikastetxe nagusi guztietan ateak zabal; gure gazte ameslariak an doiaz barrura. Esarlekuak gogor, maixuak legor, aldapa ta eztabaidak ugari...

* * *

Euskal Erri osoa ekintzan sartzen dakust, urrengo udararte ekin eta ekin; bedratzi illabete luzean.

Baiña zertako ekin, diño pentsalariak. Ekintza onek iñora ete garoaz! Ekintza alegin guztiok, elburu nagusi bat bear. Baiña zertako dira elburuak? Ba ete da iñor argi-gose danik? Urteetan argia otarpean. Illunpetako, bidebako jokaeretan oiturik, argia nun dan, ez zer dan eztakigula, leza barruan aurkitu dogu geure zerutxoa.

Giltzapean ama dala, jaio dan seiñaren antza dogu. Gela goitik, burdin artetik sartzen dan argi motela, besterik ez dogu ezagun. Illunetara gagoz oituak, argiak bildurtzen gaitu, naiz eta agoz bestetara autortu. Eta elbururik ikus nai ez dauan erri bat zuzendu bearrak, dardaretan jarri dau pentsalaria.

* * *

Pentsalariaren tentaldia: urte guztian, besteak lanean diarduela, ni ete naz alper bakarra? Ekintza itsu orretan joka bear ete dot? Urteak zear, gure onenak ondamendira daroazan amiltegira joan bear ete dot neuk be, gure Erria lenbaitlen guztiz il dedin?

Argi-billatzaille ta banatzaille izan gura neuke, baiña... «eta poeta, eta poeta...» Gogorra da erriek intzailleen bideerakusle izan bearra. Ekintza-aldi barri batera doa erria, ta pentsalaria arako argi. Onenean, esku-bete laguntxok adituko kexka au. Ziltzaldi gogorra. Au buruko-miña!

* * *

Pentsalaria, eutsi sendo okotzari bein. Erri guztietan dozu lagun bat zai. Zeure kideko ta tentaldi bardiñean.

Buruan argi-gose, begiak mendiko eguzkira. Emon daiogun pentsalariok, Erri oni bere bidea, ez amor emon.

Biotzean maitasun garra, guztientzakoa, baiña danen gaiñetik zapalduen laguna.

Begiok zabal argira. Pentsalariok jaso burua. Maitasuna bizi dan arte biziko gara. Maitasuna barriz, illeziña da.

Irraillak 29: Aralar'ko Mikel, tentaldi gogor onetan gareanoi, eldu, bai el!

DEIA

Emen natorkizue bostgarren aldiz. Ume koskortzen noa, laister galtzaluze ta guzti ikusiko nozue; aundiago ta sarriago. Orretarako batetik, eta ori eldu bitartean bestetik, zuen laguntasun osoa bear dot. Neuretzaz diñozuena: «Agur» polita dator, sutsua...; «Agur» ek beste gai batzuk be erabili bear leukez; «Agur» ek au, batek; «Agur» ek au ez, besteak... entzuten dodaz urriñetik, makal, eta zuena naizenetik zuengadik zuzenean entzun gura neukez. Esan daistazue ba:

IDAZLE: Askok uste eben baiño idazle geiago zan or zear, euren alegiñetan antzu geratzen ziranak, ez euken nun argitaratu-ta: arau estuak, bereizkeriak, zuriketak... ta ara, gurera etorri jakuz artega, euren neke eta itxaropenak neri eskeintzen. Txikia naiz-ta, ezin zaituet nere magalean danok besarkatu, ta ezinbestean, idazle maite, ara nere eskaria: labur ibili zaite urkoarenak be toki bat idoro dagian eta zeurea be aurrera doaken. Gaur, orri gitxi dodaz, laister geiago, ala-ta-be, labur izateak alde on bi dauz: aspertu barik irakurriko dautsuez ta irakurle geiago izango dozuz; lagun askoren lanak agertuko dodaz eta zeu be ustetsuago aurkituko zara ainbeste idazleren erdian.

IRAKURLE: Zuretzat sortu ninduen, zu zara ba nere elburua. Zuk esan bear ondo ete-nabillan, ta ez egidazu esan astirik ez dozunik, begira neri, txikia ta sortu barria izan arren, emen naukazu alegiñetan zure gogo-biotzak alaitzen. Ta erraz-erraz erantzun dagidazun, ara emen zer esango daustazun: Zeintzuk izan dira oraiñarte atsegin izan jatzuzan lanak?

Au jakitea bearrezkoa ba'dot be, askozaz geiago beste au: Zeintzuk ez jatzuz izan atsegin?, ta garrantzi aundiagokoa: Zeintzuk irakurten asi ta bide erdian, amaitu barik laga dozuz? Zergaitik?

a) *luzeegiagaitik?*
g) *gaiagaitik?*
k) *idatz-joskeragaitik?*
Beste ezergaitik?

Ta ez bildur izan nere idazleok minduko dozuzenik, beste aldera, gure esker beroa izango dozu; zuk, irakasle zarala era baten, gure jakin gurea —nerea ta neretzat idazten dabenena— argituko dauzkuzu.

A G U R
(Apartado 2 - Bilbao)

INDARKERIAREN AURKA

Uruguai, lurraren bost aldetan dabil gaur ago-miñetan. Zergaitik! Jazoten dana ez da barri, betikoa era barrian baiño. Tupamaroei buruz zerbait esan gura neuskizu. Indar barri bat agertu da. Gogor diardu, mendietan barik, uri barruan. Talde lez nortasun berezia dabe, baiña ekintzan Ego-amerika-ko gogortasun indarrakaz batera jokatzen.

Munduko bigarren gudaldian eta Korea-ko gudan bere urre-aroa izan eban Uruguaik. Amestu ezin daitekezan dirutzen jaube egin zan, aragia ta artillea salduaz.

Erbesteko ondasunei ateak igiri, ateok, ziran gaiñoan zabaldu be... Amabost urtetan, munduko diru-kaxarik emonkorrena antxe zan; iñun ez besteko ondorenak emoten an diruak. Bizilagunak bi milloi t'erdi. Endaz eta izkuntzaz bat: paradisua lurrean. Lanerako zortzi orduko legea ezarten aurrendarien arteko, Ikastetxe Nagusi'ko ateak edonontzat zabal eta duan; zartzaro, geixo-aldi ta ezbearrentzat, antxe ziran gizarte laguntzarik aundienak.

Urte onak beti ba'litzaz? Auxe uste eben agintaritzan egozanak. Alako baten, atzerriko iturriak agortu dira, leengo dirutzak etorburuetarantz abiau, erri-ondasuna uts. Urrea urritu, beiak antzutu. Erriaren aurrera-jokoa galgaturik, ondamendirantz.

Diru-etxe asko zarratu; etorpide bako lantegiak geldi. Gazte asko salduta aurkitu ziran. Ikastetxe Nagusitik ataratako titulu-agiriak zertako ziran? Erbestera urtetzeko, besterik ez. Atzerrira bidea mingotza da.

Jazoera guztion erruz, gin-gan larrian da gaur Uruguai. Larriune onexek sortu dauz Tupamaroak. Garbi esanta: Tupamaroak ez dabe erria ondatu, ez; ondamenak berak sortu dauz Tupamaroak.

Agintariek ez dabez ikusi nai; gaizkille ta erri-naastutzaille deritxoe. Agintariok ondamendi onen sustraiak billatu bearrean, eurok ekar daben ondamendia, or diardue itzik labanenak atertu gabe esaten: aurrerapidea, bakea, atsedena; txakur-amesak.

Bien-bitartean artu arriak eta guztiak Tupamaroei, egurra gaiñetik. Otsoa errekagoian ura loitzen, ardia beerago ur-loia edaten. Alan ta guzti be otsoak garrasi. Agintarien ustea: eurak paradisu orren egilleak, Tupamaroak ondatzailleak.

Baiña nagusion usteaz gaiñera, badira beste batzuk, guztiz iruntzitarakoak. Langille ikasle ta ekintzaille asko, erri obe baten alde diarduenak. Tupamaroen alde dira.

Unibersitario talde batek, auxe diño eurei buruz: «Uruguai erri onen gogoa dozuez Tupamaroak; eurak jasoko dabe gure erria. Erri au barritu nai dabe, onik apurtu barik. Eurok erakutsi dautsoe erriari nun diran ustelkeria, arropuskeria, eta gizarte onen gaitza».

Indarkeria dabe batzuentzat, gogortasuna askontzat. Zuk irakurle jarrai egi billa. Nik antz-emote bat egin dot, eldu iatazan barrietatik. Ez naz igarle. Nire okerrak zeuk bete.

GARITAONANDIA'TAR GOTZON

EUSKERA BATUA

Biologi legeetan asko sakondu bearko dogu orain ikusten doguzan aldakuntzak ondo ulertzeko. Len, guztiori puzkatuko ebela berenganatzen ez bazuten, orain Lekuona Jaunaren Euskaltzaindiko aulkia «arranoak» kabitzat artu dutela, arrano kumeren ordez «uso txuriak» urten dabe. Alan dirudi beintzat, aldizkaritan lengo ta oraingo idazlanak irakurri ta konparatu ezkero. Jakiña! Norberak makilla eskuan dauala, besten aurrean paketsu agertzea gauza erreza da, aurretik baña makillea gogorkeriz lortu ba'da... zelako pakea da ori?

Orain Arantzazu'ko batzarrean sortu zan «mitoa» danori sartu nai dauskue. Batzar ura baño urte bi edo iru lenago ainbat lan eta orri irakurri genduzan an bedeinkatu zuten ortografiagaz idatziak. Aurretik talde bik edo iruk (ez dakit zenbat diran) artutako erabakiak, euskeraren «Aitona» ta intelektualari eskeñi eutsezan; batek edo besteak aurka itz egiten bazun oiuka ixiltzen zuten. Azkenean, «aitonak» amen esan zioten; An sortu zan txalo otsa, «champañagaz» ta guzti ospatu zan iraultzaren lelengo garaitza ta «mito» barriaren jaiotza ori. «Euskera batua» egiña zegoan ta euskeraren etorkizuna odei baltzik gabe! Garrantzitsuena, ikurra sartuta ta ideoloji arrotzari ateak zabalduta beste ardurak, euskera sendotzea, garbi gordetzea ta abar... zertarako? «H» zale igarle batek diñoan lez 40 urte barru euskerarik egingo ez bada... zertarako ardaratu?

Baña Arantzazu'ko erabakiak (erabakiak ete!) sartu erazteko «Jostunaren kutxa» ta beste idazti batzuk sortu dira; iztegiren bidez, samurki, gazteen artean ideoloji arrotzak sartzeko modukoak. Baña «Jostunen kutxetan» margo askotako ariak nastaurik egoten dira, korapillotuak; gero askatukeran, sarritan apurtzen dira... ez ete da ori gertauko orain be?

«Kutxa» ortako biltzarretan gu «madarikatuak» izan gera, eurak nai duten «batasunik» guk nai ez dogula-ta; batez ere nere izena diabruarena bezela erabili da... or konpon Marianton!

Gu, milla bider esan bearko, ez gagoz euskeraren batasunaren aurka, alde baño Euskera ori zelan batu ta zelako ortografia erabilli jatorriz euskaldun ta egiz jakitun diraneen eskuetan utziko dogu. Epe baten barruan, euskera batasuneruntz doan bitartean, bizirik iraun dezan lan egingo dogu. Abortua, maitakeria, ta erbesteko zerbait asmo sartzen denporea ta indarrak galdu barik... umeak eta gazteak, euskaldunak eta ikasleak alfabetatzen alegintzen diranei lagunduz, ori izango da gure elburua ta orretarako sortua izan da «Agur».

Guk, sasi letradu gizajuok, apal-apalik jarraituko dogu erriak batasunaren aurpegi bakarra ikusi ez dezan; gero diñoen lez erri orrek aukeratuko dau sentsu geiago dauana. Olan izan bedi!

«Agur» gure aldizkaria, gaurko abiadan badoa, laister amabosterokoa izango da; urrengo bultzakadan, biderik txarrenak arakatu ondoren, bear doguzan aiña arpidedun izango doguz.

Guk ez dautsegu ezertariko «kutxa» erregleri jaramonik egingo; gure ustez, berez, idazleok batasuneruntz joko dogu, egizko «maixuen» itzalpean, ta 70 urte oneitan lortu dana aurrerago eruan.

Eta orain itaun au: Kutxa orretan, euskeraren etsairik aundienagandik diru artzen dauanik ba'lego? euskera ondatzeko barrutik lanean balebil? Jostunaren kutxak ari beltz larregi baleukaz? Geroak erantzuna.

Batasuna bai; «mito» barririk ez.

Arenaza'tar Josu

TA BATASUNA

Txikia da Isrrael, ala ta bere ez da ososoan batua, ta ez dala erreza esan bear ainbeste erritan, gizaldiak zear aldenduta, bizi izan diranen artean. Jakintzan aurreratuak, asmo guztietakoak, iritxi askotakoak, aor baña, gerorako utzi dabez orrelakoen zuzenketak, eta gaur, bat agertzen dira, bizi edo bizi ez, daben ekiñaldean. Arabetarrak ostera, asko ta aundi, gizaldietan zear kultura baten lotuta, etsaia burrukatu baiño, bakoitzak berea gaiñeratu guran, anai arteko erailketa negargarrian dabiltz. Ba-dago nun ikasi ta nun ez.

AIXOLA

EUSKEREA

H' IZKIAREN ALDEKO ARRAZOIAK (?)

Ez naiz letradu, ezta sasi-letradu ere. Euskeraz lendabiziko aldiz idazten det kalerako. Au onela izanik, baiña, eta irakurle soil-soilla naizen aldetik, gure izkuntzaz iritzi bat emateko iñork ken ezin didan eskubidea badedala deritzait. Denok ez gera idazleak izan bear, ezta batzarretan itzegiteko gauza ere.

Beraz, aldizkari baten «Begoz ixilik» idatzi zuanari baimenik eskatu gabe, «h» izkiari buruz zerbait esan nai det. Euskera ez da talde batena, ez batzuena, naiz eta idazlez osatuta badaude ere. Guztiona da, erri osoarena. Eta denona dan zerbaitekin, ez dedilla iñor dictadura bat jarri nairik etorri. Gorrotagarri zaizkigu mota guziko dictadurak. Ezin onartu, bada, orren antzeko zerbait euskerarekin egin nai izateak...

Euskera osoaren batasunaz nere iritziak izan arren, gaurko lan ontan «h» erabiltzearen alde eman diran arrazoiak aztertu nai ditut bakar-bakarrik. Nere ustez, ongi berezi bear liraken gauzak dira bi oiek, naiz eta batzuk nasten dituztela ikusi. Auentzat, h-kin idatzi eta euskera idatziaren batasuna egiña dagola deritzaie. Eta egiñago oraindik, zenbat eta «h» geiagokin beren lanak azaldu.

Izki orri buruz nere iritzia emateko, ongi datorkit orain egun gutxi irakurri al izan dedan «Aranzazu» aldizkariaren 467 gn. alea. Euskaltzaindi'ko Aita Villasante'ren lan bat dakar, erderaz idatzita. Lan orretan, Koldo Mitxelena jaunak emandako arrazoiak dakarzki, «h» erabiltzearen aldeko arrazoiak, alegia. Eta geigarriz-edo, baita lan orren egillearenak ere. Batzuei ausarkeria iruditu arren, aztertu nai ditut emen arrazoi guzi oiek.

Aita Villasante'ren lana erderaz dagon ezkero eta gauzak nasten ditudala iñork esan ez dezan, azaldu diran bezela jarriko ditut aitatutako arrazoiak. Auek dira:

1.—La generación joven de escritores de este lado del país ha optado ya por la «h». (Razón biológica).

Ni, beintzat, ez nator bat arrazoi orrekin. Batetik, gazte talde bat ez da gaztedi guzia. Badira beste gazteak «h» ori erabilli nai ez dutenak; Bestetik, gaztedia gauza bat da eta arrazoia bestea. Gazteak izan dezakete arrazoia. Askotan gaiñera. Eta orduan eman bear zaiote, dutenen guztietan. Baiñan ez gazte diralako, arrazoia berekin dutelako baizik. Alderantziz, arrazoia ez baldin badute eta naiz gaztedi osoa batera egon, etzaiote eman bear. Gizonki jokatuz, beintzat, nere ustez.

Ongi dakit gaurko gazteengan datzala biarko etorkizuna. Orrek ez du esan nai, baiño, gazteen iritzi guziak beti arrazoizkoak izan bear diranik eta besterik gabe, une orotan, bai *esan bear zaienik ere. Arrazoiak dira, arrazoi utsak, kontuan artu bear diranak, eta ez iritzi ematen dutenen urteak. Gazte ez diranak ere euki dezakete arrazoia. Zergatik ez! Nabaritzen ari naizena, ala ere, auxe da. Gazteenganako batzuen amore eman naia. Ez bakarrik, ordea, arrazoia dutenean, orduan legezgo dan bezela, baizik eta ez dutela iruditzen zaienean ere. Gazteen artean ongi ikusia egoteko? Dana-dala, gaztedia ta arrazoia ez dira beti gauza berdiñak nai ta naiez izan bear. Orregatik ez nau batere betetzen dalako «razón biológica» orrek.*

2.—Es un instrumento de unidad entre los vascos.

Orrela izango da «h» izkia idatzi nai dutenentzat. Guretzat iñork ez erabiltzea litzaken eran. Onekin, ordea, eta geroago ikusiko dan bezela, ez det esan nai gure beste aldeko anaiak «h» ori bere idatzietan kendu bear dutenik. Oraingoz auxe bakarrik. Batasunerako tresna bat izan al da «h» ori? Edo gure artean len baiño askoz banatuta uzteko? Eta ez dedilla iñor etorri Mari Gaizto aitatuz. Eskubide berdinberdiñarekin jaurti dezaiokegu berari ori bera-ta.

3.—Su sonido y empleo fue en tiempos pasados universal en todo el país, aunque luego se restringió a los dialectos vascofranceses».

Ori ere arrazoia bada, izkuntzak beti geldi bear luteke egon eta asiera-asieran idazten zan eran jarraitu. H'ri buruz esandako arrazoi ori jatortzat artu ezkero, zergatik ez gera une berean «lenbicico», «ongui», «adisquide», «icusico», eta abar, idazten asi bear degula esaten! Lenago etzan orrela idazten? Zergatik H'kin bai, beste itzakin egiten ez dana?

4.—La literatura vasca posee muchas obras de calidad, tanto antiguas como modernas, en que es *imprescindible* la «h».

Nik ez det or ere arrazoirik arkitzen. Lengo ta oraingo lan ospetsu asko egongo dira, bear bada, «h» izkiarekin idatzita. Auek dira, baiña, nere galderak: Bearrezko *al da lan oietan «h» ori erabiltzea? Zergatik? Zertarako? Zer galduko luteke lan oiek berak izki ori gabe idatzita baleude?*

5.—En concreto, la «h» intervocálica, aun cuando unos la pronuncien y otros no, resulta beneficiosa en la escritura como medio de fijar definitivamente ciertas grafías fluctuantes. Por ejemplo, el nombre vasco de la cama se escribirá «ohe», «ohea», y de un golpe se suprimen tantas variantes: «oi», «oge», «oya», etc. El vocablo que significa boca se escribirá «aho», y automáticamente se eliminan «abo», «ago», «aua», etc. El vocablo que significa necesidad se escribirá siempre «behar» y se quitan tantas contracciones y variantes como «biar», «bier», «biot» (bear dot), etc. La «h» hace de tabique e impide la degeneración y corrupción, tanto fonética como gráfica».

Egia da itz asko era ezberdiñean esan eta idatzi ere idazten ditugula. Baiña bat aukeratzekoan - eta nik ez det esango zein, noski zergatik bearrezko izan bear du «h» ori sartu? Naspillatik irtetzeko, berdinberdin zan, esate baterako, beste denak baztertzeko esan eta «oe», «ao», eta «bear» idatzi bear degula zabaldu. Denok itz guziak berdin esan ezkero batasuna egiña bait dago. Baiñan kontuz, gero! Ez bakarrik guziok «h»-kin idazten badegu! Baita h-rik gabe ere! Ori dena idazteari buruz. Ez baidet uste «h» izki au esaten *ere ikasi bearko degunik.*

6.—¿El ideal de una ortografía fácil y sin dificultades, representa acaso un beneficio real al euskera o es, al contrario, un mal y una fuente de desprestigio? Todas las lenguas tienen sus intríngulis y no hay más remedio que aprenderlos. Conocemos lenguas con ortografías bien complicadas y parece que esto mismo contribuye a que dichas lenguas se agranden y crezcan a los ojos de los que tienen que estudiarlas. Institivamente pensamos que todo obstáculo es una simple rémora, pero ¿no sucede hartas veces que es un acicate y, por ende, un factor de progreso?

Barkatu, luzeegia bada kopiatu dedana, baiña merezi duala deritzait. Zailtasunak bear omen ditu, nunbait, gure euskerak, gorengo mailletara iristeko. Arrazoi ori irakurrita ulertzen det orain «h» izkiaren sartu naia. Orain galdera bat. Euskerak zailtasunak bear baldin baditu, zergatik ez gera bereala bereizten asten noiz «b», «v», «g», «j», «c», «z», «k» erabilli bear degun? Eta «azentuak» jartzea, etzaio iñori oraindik bururatu? Ez litzake, agian, lan erreza izango; baiñan bai onurakorra, gure izkuntzaren izen onerako, or goiko arrazoiari jaramonik egin ezkero.

7.—La ortografía vasca afortunadamente está hoy prácticamente unificada. Sólo existe una *grave discrepancia*, que es precisamente la relativa a la «h». En unos dialectos literarios se emplea, en otros no. La unificación supone o la adopción por todos o la supresión por todos de dicha letra.

Ortografiari buruz, egia da «h» ori dala alde bateko ta bestekoei bereizten gaitun izki bakarra. Baiña iñola ere etzait iruditzen berezitasun larria *danik. Ezta denok jarri edo kendu bear degunik ere, ortografiaren batasuna badegula edo ez esateko.*

Gaztelera, ongi landua dagon izkuntza dala esan diteke, nik uste. Ala ere, danok dakigu berdin idatzi ditezkela (beste askoren artean eta iñork orregatik galerazi gabe), adibidez jartzen ditudan itz auek: psicología, sicología; obscuro, oscuro; septiembre, setiembre; transferir, trasferir; transporte, trasporte.

Ori orrela izan arren, iñork esan al dezake gaztelera izkuntza ortografiaren batasunik ez daukala! Eta izki bakar bategatik, guk gurea galtzen degula, bai? Adibide oiek ikusita, zergatik bereiztasun larritzat *artu bear da, batzuk h-kin eta bestetzuk h-rik gabe idazten badegu?*

Begira zer zion Tachin'ek, urtebete dala, Donosti'ko EL DIARIO VASCO egunkarian: «La Academia de la Lengua Española ha publicado un opúsculo con la ortografía oficial y en él se califica a la «h» como un signo ocioso». Ez det orrekin esaten besteak egiten dutena guk ere egin bear degunik, baiña eztago gaizki jakitea.

Bukatzera noa: Beste aldeko euskaldunak, «h» izkia esan *egiten dute itzegiterakoan, eta orregatik, nunbait, idatzi ere bai. Bearrezko egingo zaiote, noski. Guk, ordea, ez degu «h» ori esaten. Eta idazteko bearra era eztegu. Zertarako? Alperrikako izkia da. Aztertu ditugun «arrazoiak» ere, neretzat beintzat, ez dute ezer balio. Au da, orregatik, nere iritzia. Beste aldekoak, jarrai dezatela h-kin idazten. Guk, ordea, eztegu izki ori erabilli bearrik. Onela, gaiñera, BATASUNAK EZTU EZERTXORE GALTZEN, EZ EUSKERA OSOARENA, EZ ETA ORTOGRAFIARENA ERE. Dalako «h» ori, ez bada nastu BATASUNA itzarekin. Gai ezberdiñak dira, neretzat, noski.*

Anza'tar Andoni

ESKATU BAKO ERANTZUNAK

● *Idatzi bide bakarra izan dogu orainarte, ia berez,berez danok onartua ta Euskalerri osoan nagusi. Iparraldean be, an erabilten ebezan izki berezi batzuk kentzen asita egozan ta idatzi-bide laburrera etozan pozik. Iñun ez da idatzia ta itzegiña bardin izaten, zenbat bide baiña bete izan dan atzenengo 70 urte oneitan.*

● *Erreza ez da beti izaten onena, ta gaitza ta txarra ba'litz, oba ondo asmatzen jakin ebanari jarraitu ta inguruko bereizkuntza alperrikoak aztu.*

● *Batasuna izan dogu elburu beti, ta ba-etorran, neke ta asarre aundi barik, idazleen artean, amairugarren dialektoa asmatu aurretik; au ez da izan unetxo baten be erreztasunaren eta batasunaren lagun, beste aldera ososoan.*

● *Iztegiak erriaren aotik jasoten dira, ta ezer asmatzekotan, lagun-kutunen aipamenak eta zabalkunde danbolinduak esan daikeen baiño jakintza aundiagokoa izan bear asmatzaillea. Luzear zanak esaten zuna: «Ez gera euskera berriz asmatzen ari».*

● *Gure gaiñetik egoan legea ondatu bear ta, or datoz kutxak eta mordoilloak. Ez gero lege bakarra bakarrik, euskerarena alegia, baita beste batzuk be: Jaungoikoarena, sendiarena, izarditik jan bearrana, ama izatearen edertasunarena, abenda-oiturena, erriaren nagusitasunarena... Beste aldetik, antxiñako idazle areik, ala bear eta, ez eben idatzi-bide egokirik eta erbestetik artutako iñoiz «v» urrengo «q» edo «h» edo «c» eta beste kakodun bereziak be erabilten ebezan. Idatzi-bide egokia billatzeko jakituna ez eze, euzko maitasun gorenengoa bear izan gendun.*

● *Alperriko «h» asko kendu ei dabez. Benetan erabilten ebenak askoz be geiago, ta danak baztartzeko asmoan dabiltz. Amairugarreneko oneik ostera, benetako batasuna lortuko ete-danaren bildurrez, naspil ederra sortu dauskue, ta onek damotsen azpi-atsegiña ezin ezkutatuta dabiltz. Oñarriz euskerea bat da, azalez bakarrik berezi, ta azalekoak izan be ixa, ija, iya, uba, aha, ohe, oshe; azalekoak eta uzteko inguruko bereizkuntzak.*

● *Aberastasunak erail, eskolatu bakoa noski. Gaur danok eta bizkaitarrak batez be, beste euskalkietakoak artuta itz eder asko darabillez, eurenean egokiagorik ez ba'litz edo izan arren gogorrak ba'lira. Orrenbeste egiten berez asi gintzazan, berez ta epeak damotsan indarrez bakoitzaren egokitasuna garbi agertzen.*

● *«h» rena ez da auzi larria, ala ta be, indarrez bultzatua da, gonbitxolarria sortu artekoa. Batasuna be ez ei-dago orretan, ta ori edozeiñek daki; kendu ta aiztu dagigun ba, orra batasunerako urrats ederra. Bandera utsa zala aspaldi esan euskuen eurok, jarri paparrean beste zerbait eta kito. Utzi baiña idatzi bidea bakean.*

● *Ezagun-ezaguna izan da beti, bai umearteko adizkide-taldeetan, bai adiñekoen artu-emonetan, ta nola ez, gazteen artekoetan be, alperrak, okerrak, gaiztoak eta ezin-egonak, euren taldetxoak egin eta batasuna eskaizen asten dirala. Amairugarrenekoak be bide orretatik datoz, eurenetik zerbait utziko dabela, besteak, erritik bertatik sortutakotik be zerbait utziko ba'lebe edo bide erdira ba'letoz. Amalaugarrenaren zain urrengo.*

● *Batek egindako lana ona ba'litz oba danontzako. Orretarako baiña, zintzo, maitasunez, apal, apal berriz be, ta jakintzaz betetako lana izan bear. Okerragoa da, askok edo ez ain askok, taldekeriz, konsignaz, irugarren asmoz eta gorrotopean egindakoa, ta au agiri-agirian dagola ezin dauskue ukatu, ezta buruzapelen aurka ain jator burrukatzen jakin eben egoslabarrak be. Gaur, ta ondo dakizue danok, alperriko izkiak baztartzeko lanean eta alegiñetan dabiltzala ludi guztiko izkuntzalariak, euren erritarrak eskolatzeko asmoan, beste asmo askoren artean.*

BEIZTEGI'TAR JON

Pozak eta kezkak

«Zeruko Argia»'n, 393gn. zenbakian, X. Arceluz'ek diñoskunez, katalandar neska bat izan da Markiña'n euskerea ikasten. Itandu eutsen: «Eta euskera batua?».

—Ezagutzen det bainan neretzako zailtasun bat izan da. Errian nenbillenean ez det euskera batua iñoren aotan entzun. Eta «h» esatea klasetan bakarrik aitu det. Esan bear al dira?

Nola entzungo zun ba? «Euskerantoa» euskalki modernua iñun ez da egiten-eta. A! disko saltzalle batzuen etxean izan ezik.

* * *

Iztegi barri baten, ezkontzari buruz definizio au irakurtzen da: «Emakume bategaz bizi izaten asi». Ederra kontua! ez erligiorik, ez lege-zibillik, ezta andrak ezkontzerik be... ori jaunak ez da ezkontzea; gure errian orri «Arrimau» esaten jako.

* * *

Aldizkari baten zuzendari ordezko dan eleiz-gizon batek ara zer diñoan: «Oiñarritzat artzen da «B. Kutxa'n agertzen dan iztegia». Sekula alakorik!

Intza'r Damaso An'ek auxe diñosku, beste gauza askoren artean: «Euskaltzaldiaren azkeneko batzarrerako deirik ez nuan artu eta orrela ez nintzan joan». Ta zenbat olako?

* * *

—Atxeak ez dabela balio ezetarako, esan zeustan atzo.

—Ta gaur be bai.

—Ba... nik, ezagutzen dot, bi H. H. aundigaz mundu guztian ezagutu ta larogeta amar milloi laurleko irabazi dituana.

—Errekontxo! Ez neban uste, atxeak orrenbeste balio ebanik. Nor da ba?

—Helenio Herrera, ostikoketako trebelaria (entrenadoria).

—...!

PIPER-ZIRI

«AGUR» ERI OARRA

Agurreko zuzendari jauna:

Ez dakit zuk entzun dozun baña aspaldian or zear dabiltza «irakasle» antzeko batzuk «Agur» ez irakurtzeko euren ikasleari agintzen.

Nigana bere etorri dira euretariko batzuk, noizik bein mesedeak eskatzen, beste batzuetan labankeriz itz samurrakin ta beste batzuetan adarra joten. Atzetik gero integrista, kapitalista, burgesa eta abar esan daustez (linboan begoz).

One emen nere erantzuna:

LELENGOA.—Nik ez dot H daroan idaztirik edo aldizkaririk artuko (bestelako lanik agertzen ez ba-dute beintzat).

BIGARREN.—Nere izenean lagun batzueri diru-eske joan jakez. Badakizue nere lagun guztiak: txatur txikirik ez emon!

IRUGARREN.—«Irakasle» orreri: mesedez, ez niregana berriro ingurutu. Jarrai alperkerian iñork jatekoa emoten dautsuen bitartean, nere ustez geroago ta diru emolle gutxiago aurkituko dozue ta.

Jainkoari eskerrak «Agur» aurrera doa ta lerdo oien zitalkeriak kalte gutxi egiten dautso.

Beti bezela

ARENAZA'TAR JOSU

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Salneurria, 5 pt. alea

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

AZTERKETA TXIKER BAT

Gaurko gaztearen egoerari azterketa txiker bat egin gura neuskio; au da, zelan pentzatzen daben gazteak, eta gaztea zer dan. Idazki au masa aundira begiratuaz egiten dot.

Gaztearen pentzakerea oso ezaguna da: **Ondo bizi,** gaur gure errien zeregin batzuk dagozala ikusi barik, eta zeregin oneik ez dirala batzuenak bakarrik, ezpada be danonak eta batez bere gazteanak. Euskera arlora begiratzen badogu, au ikusiko dogu, gaur benetan lan egiten dabenak gazte izanikoak dirala, gazteen artean oso gitxi dira ekintza batzuk aurrera daroazenak, baña ba-dagoz. Gazteak beraz, beste bere sasoi ingurukoaren eretxiak edo azalpenak askoz bere gozoago entzuten dauz, bere ingurutik pasatukoenak baño.

Zer egiten dau gazteak? Aste barruan lanean dabiltzanak lantokitik urten ezkero amaitu dau eguna, ta ortik ostean urrutikuskiña ikusi edo ardau batzuk artu, eta abar. Gero, domekea eldurik partidura ta andik bear bada «sala de fiesta» ren batera, eta geienok uste dogu au eginda «expansionau» gareala, baña au esatean ez dogu azterketarik egiten. Ba-dakigu danok aste barruan lantokian edo estudiaten gagozanok, arlo orreitatik kanpora expansiño bat bear dogula, baña sarritan expansiño orretan errez-errez topatzen dogu nasaikeria; esate baterako, domeka batekoa aztertuten badogu, dana illun-utsune aundi bat dala ikusten dogu. Bear bada lagunartean pozik agertuko gara, baita ibili be pozik, baña azterketa ostean, aspertu egin garala konturatzen gara; gure poza ez dala benetako poza izan, faltsoa baño. Baña barriro bere zulo faltso orretan jausi egiten gara. Ez garala geure buruaren jaube batzuetan esan leike.

Arazo onetan garaituteko bide bat mendira igotea izan leike. An bai biotza irigiten dala, baita goitik begiratuaz konturatu be inguru itxi baten zapuztuta gagozala. Mendiak biotza irigiten dausku bai, euskaldunari batez bere, orren edertasuna ikusirik, baita an topaten diran lagunak, danak izaten dira biotz zabalekoak.

Gaur, gazteak jakintza arlotik askoz bere obeto preparatuta dagoz, baña kultura barruan sartu bear da norberaren eziketea, au ezin lortu liburuekaz bakarrik, eziko gara bai arlo baten, baña erri kutsurik ez badago ez dauko benetako eziketarik, eziketa orrek emon bear dau ba nortasuna. Gazteak, aztertu daigun geure bizitza.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER'EK

BEREZ, EZER, EZ

Mai baten inguruan gengozan ogeitalau neska-mutil gazte. Ogeita bat ikasle ta iru irakasle.

Deustu'ko ikastaroa, euskerazkoa, amaitu ta gero. Azken agurra alkarri egiteko ta alkar obeto ezagutzeko.

Alako batean, aparia asteko garaia ta, ba-diñotsot maipuru zan abadeari «Zu bedeinkatu maia».

—Ez, ez noa bedeinkatzen. Egongo dira batzuk olakorik gura ez dabenak-eta Ta nik:

—Ez dautsezu igartzen arpegikeran zelakoak diran. Diranok dituzu otoi-zale. Ta arek bereari eutsita, ezetz, batzuk ez ebela gurako.

—Baiña, gizona, zelan dakizu ori? Gaiñera, nai ez dauanari ez dautso kalterik egingo ta nai dauanari, ostera, mesede bai.

—Ezetz eta ezetz. Mai au, gaiñera, berez dago bedeinkatuta. Or amaitu zan gau aretakoa.

Nik neuk ez dot gura izaten premiña barik kristau-ezaugarriak edozelan zabaldu Larra, txarra. Ta batzuetan kristiñauok larregikeriak egin izan ditugu, mamiñari kontu andiegia artu gabe, azalkerietan ito egin gara edo besteak irato. Orrez gaiñera, gure santukeriakaz santutasuna astundu ta illundu egin dogu. Benetan tamalgarria Gau artan, barriz, ez dot uste ain zentzungabe zanik otoitxu bat egitea, Jaungoikoari eskerrak emoteko. Iñork ezer esan ez ba'leu, bedeinkatu barik jaten astea, gaitz erdi. Baiña, eskatu ezkero, ta agirian gero, otoitza itxiaz geiegizkoa egiñaz baiño kalte andiagoa sortu leitekean batzuen buruetan egin ezaz eta; bat bere ez, egin ezpero. Dana-dala berez egoan bedeinkatuta ta...

Jaungoikoak mundua egitean «ona zala ikusi eban» diñosku Genesis-idaztiak. Jakiña, ona zala ta dalata, dana daukozu bedeinkatuta berez... Berez! Ez, gizona: Arenez... Jaungoikoarenez. Arenez bedeinkatuta ba'dira gauzak, lotu gakiozan Arenari. Baiña, berez ba'dabe bedeinkapena... zer bear dogu kristiñauak gauzak santutzeko? Ez dogu ezeren bearrik. Ikurton guztiak dira alperrikoak batzuentzako. Ezkontzaikurtona izan ezik... Berau berez eta bionez dozu beinkapenez beterik. Gau aretako abadea laster ezkontzen doala entzun dogu. Berez abadetu, berez ezkondu, berez baztertu kristau-usaiñeko oiturak... Berez? Argitu egiguzu, gizona, zelan dauan izena zure emaztegai barriak? Ia berez diñozunean, norenez zabiltzan olan jakin dagigun.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANGEL

JAZKERA BARRI ETA GALTZETORRATZEKOAK

Guerricabeitia

Artecalle, 32 ◆ B I L B A O - 5 ◆ Urrut. 21 65 67

EZEBEZAREN OROIMENA

Eztozue arrotz-aldra oparorik ikusi emendik-ara egiten oñez ta berebillez udaren il oneitan? Eztozuez zuen errietako kalietatik zearka ibilten aurkitu, au edo bestea nun dagoan nekez itaunka? Beste galde bat: Iñoiz gelditu dira zuekin mintzatzeko? Eta zuok, barriz, esango daustazue ia euren artetik iñok dakian gure itza.

Bat etorri gaitezan: emendik-ara onetzaz iritzi batzuk jaso gura-neukez nik, guztiok zur ta gogotsu gagozela, ia ikasten dogun zetarakoa dan mundu larri-andi latz au. Andra-gizonak, berez, andra-gizonak diralako, barri-gose ta begiluze dira; beti urrunekoari begira, beste lurraldietara eldu nai-dabe, itxaso edo izarrartean ba'legoz be. Eta andra-gizonak era bardiñean biziez, gogaitu ta aspertu egiten dira; noizetik noizera jantziz, etxez, lanez, ta lurrez aldatu bearrean dagoz, ta ez uste diruagaitik bakarrik danik. Imiñi doguz igikunde orren sorkun bi; neurri batean andra-gizonen bearra dalakoan gagoz. Baña, dakigunez oraingo mundu au bear-idorotzallea dogu, ta eraspen barriez josirik da, eraspen merke ta errezak batez be. Juan-etortearen bearrak, geure aldiko ereak ei-dira; oitura onek, beste errien jakintza ta jazoketa agerrarazoten ei-dausku, ortik alkar-maitasuna ei-jatorkigu... orrelako itz eztiak txiteanpitean entzundakoek dira. Aldi onetakoa bada be, len orretarako dirurik asko ezegoanda; baña oartu dagigun, egia buru dala, uste ta esames salkorrak aldean itxita.

Erri bat, beste andra-gizonak, ezagutu al-izango doguz orañarteko txangoen bidez? Emon dagigun izkuntzaz andra-gizonak alkar ulertu oi dabezela; egin dagigun, erri baten barru-barruak ezagunak izateko, erritarrekin izketa bearra dala... Zetako leiteke erbesteratzea, bertakoei itz egiten jakiteke? Erri onen kezka, opa, ituak, bizigarri diranak, itz-ezean, nolan aditu, aztertu ta idekotu geinkez? Mundu zaratatsu onek sarri itza eragotzi oi dausku, ta TV ta irratiotsaren menpean andra-gizonak ixil-entzungor lotzen dira; orañaldian askori bururatzen jake, agiri danez, lurralde bateko uri nagusi, jauregi, eleiz, gaztelu edo olako zartegiek erri baten benetako irudia emoten dauskuela. Ez-ete jako iñori iruditu auxe, erri baten bizitza luzean jauregiak edo gazteluak juandakoen illarriak dirala, ta geyenetan erri arek eruan oi ebezen jauntxokeri ta nagusikerien ezaugarri berberak dirala?

Adibidez, amentxe, zer ardura dauskue Euskalerritik zear idoroten doguzen erromatarrek iragitako uriek? Mundu a, egunotakoa baizen zikintraketza, eraindu-ta juan egin zan; aren ondamenak arri illak dira, ta orreik baño, aizeak daroan autsa jasokoagoa dogu gure lurrerako. Arekaz indarkeri ta joputza gogoratzen jakuz. Iñok ulertuko ete-gaitu arri zar orrei begiratuaz?

Erri bat ezagutu gura-dabenak, bertako andra-gizonak aurkitu bear-dauz; egia ezpa-daroa, guzurretan ibilli oi da.

Egun zakar oneitan, ori zertu leiteke?; dirudun bidaztiek arroztetxe eroso-apañetara joten dabe, an euren etxietako oikuntza ta egikera ediren guraz; diru gitxikuek uri aldeko baso edo itxasondoetara, ostera: bitzuek ikusi baño besterik ezin egin: Eta neure ustean itsuka ikusi be. Zelan edo alan, azkenian, nor erriaganatu?

Ba-dulert adiñekoak lasai egon gurago dabela, baña gaztiak be... (Urrengoko baten orretzaz egin bear-dogu); oraingoz laun-laun auxe dirautzuet, gaztiak, lasai ibilteari buruz, adiñekoak baño areagoak gareala: irri ta barre, zirrika-marraka, aurrera so-egin barik, egun - egunez... bardiñ jaku, edonun, emen edo asago egotea.

Euskalerritik zear ainbat eta ainbat arrotz igaroten ikusi oi doguzanetan, igesari emoten ete-dautsoen otuten jat: ba-doyaz ta ba-datoz, inguruei begira-barik, ikusiez, adi-barik entzunez; au dabe iñora-barik oñari ekitea. Lurbira osotik bira-biraka, ta atzenean ezebezaren oroimena: izengeko lur, itxaso ta andra-gizonena.

Gu be bai, euskeldunoik, olako ibilkera txaldarretan asi gara. Kaletarrak izan ala ez, kaletar lasaikeriaren era onartu dogu. Mundu zital onen giroak ostendu, lurperatu egin dauskue gure erria; uriburuetan, lantegietan, jolastokietan, edonungo edonun, ezin agertu dogu euskotasuna: Esan-ala ba'diñogu be, erdizka gara euskeldun. An lanpetu ta erderak jorik gagoz. Galduriko nortasunaren billa geure astian jarduten dogu bakarrik. Geure astian baña, euzkolurraldeko erririk erri ezin juan gara. Gu orratiño, sarriegitan Euskalerritik atera oi gara, ta gañera, «ezagutzera» goyazala esaten dogu, gure erria berbera ozta-ozta azalez ezagututa: geu be guzurretan gabiltz. Lenengo ta bein nolakoak garan jakin bear, ta au egiñik, ondo izango jaku, bearba, erbestietara juatea.

Ibillaldiak, beraz, ezetarako bai? Aztertu-ondoren asmatzen asi gaiteke txangozaletasuna be bizikera zikin onek sortua dala; izan be, olako zaletasuna guztiz onurakorra jakola esatean, eztot iñundik be arrigarririk erakutsiko. Juan-etorri orreik, ain zuzen be, dirutzaren juan-etorriak dira; igikunde au naitaezkoa da diruak irasiriko mundu onetarako: dirua dagokio gure zañetako odola legez, ta esan geinke guk egiten dogun guztia dirua eruan-ekartekoe dala.

Imiñi dogu len agirian mundu au bear-idorotzallea dala; oraingo andra-gizonak beartsuak dira, bearrik-ezaren bear merke ta errezakaitik. Mundu ostu onek jarrai-jarraika burura sartu oi dauskuz bear tentelak; geure gayean, ametik-ara juateko bearra sarrerazoten dausku TV, irrati ta aldizkarien bidez, ta len egotzi doguzan okerrak be, orretara sarkindu oi jakuz. Mundu itxusi onek dirua purra-purra eralgitera eruaten gaitu, ez ezelanbe, gure erria edo bestien erriak maitatzera.

Naiko dogula uste-dot. Eztot nai ekin orretan, errezegia ta merkiegia izango litzake-ta. Zuek be zuen kolkoetan muñera eldu zaitekeze. Amaitu dagigun gogoeta au, emen; aurrerantzean ia nundik-nora ibilten dakigun.

ARRIORTUA'TAR ANDER'EK

NAGORE

Diru pixka bat irabazten asi zanean, Nagorekin ezkondu zan Yon Otxoa. Dirutetxe batean egiten dau bierra, azkenengo urteotan.

Donostiarra da jaiotez Nagore. Euskaldunen alabea. Erdalduna bera, izkuntzaz.

Idazteko zaletasun aundikoa izan da beti Nagore. Mojen ikastetxeko aldizkarian be idazten eban, ikasle zala: Ipuiñak, ikastetxeko gertakizunak, pasaixuak... Olerkirik ez. Iñoz be ez da izan olerki zalea Nagore.

Ezkondu ta gero be, beti idatzi dau zer edo zer Nagorek. Orain baiño geiago ezkondu aurretik. Erderaz beti.

Ume pilloa dator Yon eta Nagoren etxean. Yontxu lenengo, Elkoro bigarren, Aloña, Mirentxu... Jaio barria da azkenengoa, Xabiertxo.



Lupe ta Asier, Bermeotarrak

Itxasora-ta ez dira joaten Yon eta Nagore. Basora bai, sarritan. Ondo beteta joaten da berebil txikia.

Dirutetxeko biergin-lagun dan Mikel Intxaustigaz be urtetan dabee iñoz jai-egunetan. Egunkarietan idazten dau Mikelen andriak. Erdaldunen alabia bada be, euskera pixka bat ikasi dau Intxaustiren Miren Martinezek. Bere gizona maixu dala. Euskaltzale aundia da Mikel. Noz edo bein idazten dau. Euskeraz beti. Mirenek be bai, geroago eta geiago. Eta obetoago.

Zenbat bidar esan dautseen Nagoreri Mikelek eta Mirenek:

—Ikasi egin bear zenduke euskeria, Nagore?

—Euskeria ikasi? Zertarako ikasi euskeria?

—Idazteko be bai, baiña zeure umeai erakusteko. Ori lenengoko.

Azkenean be, erantzun dau Nagorek:

—Bai, neuretzako ez bada be, neure umeentzat ikasiko dot. Ainbatik ariñen asi be asiko naz.

* * *

—Erdalduna zan jaiotez gure ama, baiña beragandik ikasi genduri guk euskeraz berba egiten.

Ori esango dabee Yontxu, Aloña, Mirentxu eta Xabierrek geroago, okerrik ezpada.

—Berba bat be ez gendun ikasi guk euskeraz, gure ama euskaldunagandik.

Ori be askok esango dabee, zoritxarrez.

Zoritxarrez, bai, zoritxarrez.

NAPUR-ZARRA'

KONTU - KONTARI

Ixilleko Altxorra

Arabi aldeko ipuiña dogu au.

Bein, bakaldun jauna eizera urten zan. Eguraldia alakoa, eta ez jakon aurrera ezer agertu. Esku-utsen lotsa aizatzeko, zaldiari eragin eutson.

Ibili ta ibili, gaintxu polita begiztau eban. Eta artzain mutilxoa bakarrik, txiruliruka. Bakaldunari, mutikoa argia iduritu jakon; urreratuaz galdetu arek:

—Bakarrik al-ago?

—Ardi pilla bat ez da urruti.

—Ire izena?

—Ben-Ali.

—Pozik bizi al-aiz?

—Oso.

—Ametsik egiten?

—Asko!

—Entzun! Nerekin etorriko al-itzake? Jauregian, nere morroiekin ez euke goserik izango. Eguzki berotan kixkaltzerik bez.

Ben-Ali-ren erantzuna, pozezko saltotxu bat izan zan. Jarraian, bakaldunak morroiari eskuz dei egin eutson, eta Ben-Ali, Bakalerrira eruan eben.

Jauregira eldu ziralarik, soiñeko zarrak erantzi. Barri-apaiñak jantzi. Ta, nork esan mutikotxoa beti aundikien artean bizi izan ez zanik? Bestekalde, bakaldunaren begi zolien iritzia ez zan guzur gertatu.

Ben-Ali oso gazte argia zan. Iztun txukuna, bear zanean. Apala artu-emonetan. Maitatia arazoetan. Esangiña beti. Zurikeri bagea. Saloa. Irakaslea beretzat bakarrik ekarri eutsen eta, ikasketak gogoan artzen ebazan utsik bage.

Orduan bakaldunak:

—Ben-Ali!

—Jauna, agindu, arren.

—Nik aurrik ez jaukat. Nere seme legez artuko aut. Lanak zintzo egin bear dituk.

—Al-dodan ondoen!

Urte asko baiño len, Ben-Ali giza-biotzen onu-emole azkarra izatera eldu. Gitxi itz egin. Baiña, bakaldunak norbaiten galde egiten ba'eutson, Ben-Ali-k iñungo erantzunik zuzenena eta egitiena emoten. Orrela, beste guztien, esku ta almen aundia lortu eban.

Esaleak saria utsean izaten, eta bakaldunari Ben-Ali sarri aitatzen eutsen. Ezkutuko asko eukozala. Agian kutunak bere bai. Iñori ezer gutxi adierazten ba-eutson be, gertutik zaindu bearrekoa zala...

Bein, goiz-goiz, bakalduna, Ben-Ali-ren egoitzara joan zan. Gizaseme gaztea batetxo ez zan larritu. Erasoaren susmoa aspelditik bai eban.

Bakaldunak txoko guztiak zeatz arakatu eutsozan. Baiña ezin ezer okerrik aurkitu! Guztia ain egoan egoki ta bere lekuan...

—Bai al-ekiken etorriko nintzala?

—Igarri, beintzat.

—Entzun izan ditudanak, guzurrak beraz?

—Ori ez da nik esatekoa.

—Bai ei daukok, ala bere, ezkutu-ezkutuko zerbait. Erakutsi bear daustak.

—Gogorik aundienaz. Ona emen giltza.

Ta, biak, ziralako altxorrak ikustera joan ziran. Ben-Ali'k antxe eukozan zapitxoan batuta txukun-txukun artzain-makilla, mutiko zaneko soiñako zarpailla, burusi ta oiñetakoak.

—Ez al-ebazan erre?

—Bai zera!, jauna. Ortarako beti izaten da garai berezia. Bai ta: zurubia gorako ta berako izaten da! Amatxori ainbestetan entzun neutsona! Orain erruz igon naz. Aukera guztiak daukadaz, zuri esker! Noiz arte? Ez dakit. Berorrek be ezin esan.

Beeraka asiz, emendik urten bearrean aurkituko banitz, ekarri nituanak izango dodaz. Orrek bakarrik zintzoa izaten asko laguntzen daust!!

—Ederto seme! I, bakarra aiz! Ondo, ala bere!! Burutsua ta maitagarria! Nere ondorengo izango aiz!!

* * *

Ipun polit ori, Aita Etxeberria josulagunak bialdu dausku CHINA'tik. Amar illabete egin dauz SHUIPIENTON'en. Orain, barriz, HUKOU Taiwan'era itxuli da. Emetik idatzi digu Aberri-miñez. «Eutsi», diñozku.

Ta... ortan gara. Ben-Ali'k bezela, ondo gordeta daukagu geure euskal-pardela.

Besarkada ta eskerrik-asko.

ABELETXE

ZUBIRI

LASTER ZABALDUKO DA

Ercilla, 30

«Usaintsuak» ba' dira be...

Sarritan, ipuintxo baten bitartez «egi biribillak» aurkitzen doguz. Orixe bera jazoten da ondoan azalduko dogunagaz.

Negu itzel baten, gizon batek bere bidea ziar joyala, erdi ilda egoan txoritxu bat aurkitu eban.

Antza, geure gizon orrek, biotz onekoa izan-eta, otzez erdi ilda egoan txoritxua, bere eskuetan artu eban berotasun apurtxo bat emoteko asmoz.

Baña, au tamala¡, txoria otz-dardarez ba'egoan, geure gizon on orrek ezeukan bero andirik, bere eskuetan beñik-pein...

Olan egoala ta zer egin bear jakin barik, ara nun ikusten daben, aldi-gitxi zala andik igarotako bei batek egindako pekorotz andi bat, oindiño bero... ta «keia» ta guzti eukala...

Au ikusirik eta txoriari bero apur bat emoteko asmoz, pekorotz orren barruan sartzea otu yakon...

Oldoztu ta egin. Zotz bategaz zulotxu bat egin ondoren pekorotzaren erdian, txoria sartu eban...

Andik laster eta pekorotzaren berotasunagaz txoritxua «berbiztutzen» asi zan; bere pozean «txio-txioka» asi bere. Geure gizona be olako «txio-txioka» entzunaz poztu egin zan, eta ez gitxi, gero!

Baña ludi ontako pozak eztira betirako izaten... eta igarri baño len, andik igaro zan katu batek, txoriaren «txio-txiokak» entzun eta alako atzarpaka bategaz txoria artu ta, azkeneko «txio-txio» bat atzeko astirik emon gabe, iruntsi egin eban...

Onaño, jazorikoa. Ondorengotzat, zelako egi-biribillak bururatutzen dautzuez ipuiñ onek! Bat bez! Ara emen neronek entzundakoak...

1'goa.—Pekorotzen tartean zeure burua sartzen *dautsoen guztiak, eztabe txarto edo oker maite zaituelako egiten...*

2'gna.—Pekorotzen tartetik zeure burua ataratzen *dautsoen guztiak, eztabe ori egiten beti zeure onerako...*

3'gna.—Iñoiz, zeure burua pekorotz tartean iñork sartzen ba'dautzu ez eizu bota «txio-txiorik» bat be...

Ezderitxazu «egi-biribil GALANTAK» dirala!

EGILEOR'TAR JON

ARMENTIA

Arabako Armentia,
errialde ederra zara
zabalera egokian.
Millak urteetan
gure asaba zarrak
landu zinduezan
euren indarrez
ta
izerdiz
adimenaren
argiz
ta
biotz maitasunez.

Apal eta sinismentsu
ikusi dot zure Eleiza
erti aundikoa.

Gizaldien gizaldietan
zure ormetan
dago,
gizadian jazoten dan
txarkeri baltzena,
Kristo zapaltzea.

Pizti aundi bat egoan
jende artean,
bere griña zatarrenekaz
pizti txikia
samatik artu
ta egin zarrekaz
ari
bizia kentzen.

Nor zara zu...
noren eskubidez dagizu
ilte zakar ori?

Ni lurreko nausikeria naz,
Ez daukat ezeren bildurrik.
Basoko leoiak,
abere txikiak
zapuztu, ito ta jan dagizanez,
nik, gizadiko jaun onek,
nere kideko txikiak,
atsegiñez, menperatzen ditut,
neure griñen poza
besteen odol eriotan
asetzen dan bitartean.

PAULIN

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik:

Gure basetxea muiño baten egian yarrita dago, ta bere izenak adierazten dauenez, atzeko aldean agin zaar lerden bat azkona bezela ortzerantz yagiten da. Iñork ez daki agin au noizkoa dan, baiñan gauza batetzaz ziur nago, basetxea baiño aintziñagokoa dala alegia, onen izena zugaitzetik artua izan bait-da.

Agiñalde'ko orma nagusia ego-sortalderantz eraikita dago, ta erdi-erdian abo erraldoi baten antzera, atari zabala, txeratsua, agertzen da. Barruan ate bi ikusten dira; eskumakoa korta aundi batera zabaltzen da; ezkerrakoa sukalde garbi txukun bateko sarrera dogu; leio bik argituriko, erdian mai luze bat, eta alde batean suete egokia kebide zabal batez burututa, gela au bere arlasta aundiakaz etxeko nagusia da. Emendik iru ate lo-gela bana idegiten dira. Goiko mail osoa ganbaratzat erabillitako beste errotak orain tximist-indarrera biurtu dira, ta orain uren suzmur atsedengarria Errotazarrean bakarrik aditzen da.

Gure erria ez da aundia ez txikia, bitartekoa baizik. Kale luze bat mutur batetik besteraiño edatzen da, ta au dogu gure kale nagusia, erriari bizitza emoten dautsona, salokiakaz beterik. Emendik beste kale laburrak ezker-eskuma zabaltzen dira, ta salokirik ez dabezanez, baketsu, ixillak, lotan bezela agertzen dira. Errian ez da lantegirik, baiñan erriko gizon asko inguruko errietako oletan ari dira, batez bere Atxandi'n gure araneko erri-buruan, emen yagiten dan metalgintza aundi samar batean.

Beste urrengoetan erriko zeatz asko emongo dautsuet, orain baiñan, Agiñalde'n bizi diran neure biotzeko maiteentzaz mintzatuko natzaizue.

Amama dogu Agiñalde'ko iñurria, ez-arian bezela danetara elduten dana, zarata barik amaika lan egiten dakiana, batez bere sukaldekoak eta etxe-barruan egiten diranekoak, eta gaiñera bere ardura-pean umeen garbitasuna ta oilloen yanaria. Emakume maratz eta ixiltsu au etxekoyaunaren ama da, ta itz urrikoa ba-da bere, esaten dauena aintzakotzat artzen da.

Mikel gure etxekoyauna, baserritar yatorra dogu. Itz gitxikoa baiñan langille porrokatua ta adimen argiko gizona. Ogetamabost bat urteko gizon sendo onek, badaki basetxe bat zelan erabilli bear dan. Orain urte batzuk, Agiñalde'n ez da garirik ez artorik ereintzen; lur guztiak, abelgorria azteko bear diran larreak izan ezik, barazkientzako dira. Egunero, etxetik errira gure astoak barazkiz beteriko otzarak gurdian daroaz, eta emen kamioi batean sartu ta Bilbao'ra. Olan, Agiñalde'ko tomateak, piperrak, azak, urrazak, azaliak, zerbak, porruak, kuiak eta abar Bilbao'ko merkatuan ariñ eta mozkin ez txarragaz saltzen dira, bai ta gure basetxeko sagar eta madari bikaiñak. Orain gitxi dala, gure etxekoyaunak Agiñalde ostean zabaltzen dan Muinozabal'eko otadia erosi dau garbitzeko asmoz, gero emen larre aundi bat eta solo batzuk atonduko dauz. Orain buruan darabil etxera ura ekarteko asmoa, etxekoandrearen amets bizia betetzearren.

Etxekoandrea... ona emen gure eguzki ta alaitasuna. Bera agertzen danean, ba-dirudi inguratzen yakon guztia argiz beterik dizdiratzen dala. Begiak eta adatsa gaztainkarak ditu, ta bere aurpegi ederrean abo parrekoiak alaitasuna ta zoriona nun-nai yaulkitzen dauz. Sarritan ikusia dot etxekoyauna bere adats bardingabea laztanduaz, eta orduan izarrak alakoak diran emaztearen begietatik, zerbait maitasunezko argia bai'litzan dario, ta gure etxekoyaunak zoriona menderatu eziñik ezpain dardatsuz maitasunezko txinpart aiek mosuz laztantzen dauz.

Iru seme-alabak dira gure Agiñalde'n. Seme nagusia Mikeltxu dogu, zortzi urteko mutil txairoa, aurpegiz amaren itxurakoa, ain parrekoia ez ba'da bere. Oso zaletua da basetxeko lanetarako, ta zer esanik ez, aitaren itxaropena da. Gero Edurnetxu, aitaren irudia ta amaren gogo alaia erakusten dauzan sei urteko neskato polita; ikasteko yoera bereizia adiarazten dau neskato onek, eta amaren amets bizia da, maixuandereiño ikasgoa bete daiala. Martintxu ta Edurnetxu erriko euskal ikastolara doaz, eta euskera zoragarria darabiltz. Gero Yontxu gure lau urteko buruaustea dator. Guztion, baiñan bereiziki amamaren kutuna da. Beti dabil biurrikeriren bat asmatzen, eta ondoretzat aitaren edo amaren iñusturiak entzuten diranean, arrapalada batean amamaren magalean ezkutatzen da, ta portu baretsu ontan dirau, ekaitzaren ezaugarriak itzali arte. Baiñan egia esateko danok biziro maite dogu barrabastxu au, ta bera barik Agiñalde'ko bizitza eguzki barik irudituko litzakigu.

Korta zabalean, bost bei eder eta txal bi daukaguz, asto zaar bat eta onen ondoan Ankaluze astakume ospetsua, Yontxu'ren idorokunde bikaiña beste urrengo batean edestuko dautzuedanez. Gero Txo, etxeko txakur zuria, aunditasun urrikoa baiñan adimen eta biotzez aundia; begietatik dariozan txinpartek darakusenez. Urrengoan azalduko dautzuet zelan txakur kementsu au gure etxera eldu zan.

Onezaz gaiñera yakiña, ogeitsu oillo ta aateandana (saldo) bat, a... ta aaztuteko zorian neban Popi, katu maltzurra.

Azken-azkenik ni nozue, Agiñalde'ko ñimiñoena baiñan bai zaratatsuen eta oiulariena. Leen etxekoek nitzaz arituten ziranean, esaten eben:

—Orra or barriz txepetx barritsu ori...?

Orain ordea erriko izparkaria naizen ezkero, gure txepetxa gora ta gure txepetxa beera, egun osoan abotan narabille.

Eta olan, Agiñalde'n bizitza paketsu ta alkarganako maitasunez beterik darrai. Asko maite dot bene-benetan gure txoko zoragarria, baiñan areago agiñaldetarrak ene biotzekoak. Neure izaeran ain sakon sartuik ez ba'lira, ludian zear itun eta noragabe yoango nintzake.

AGIÑALDE'KO TXEPETXA

«Kresal - txiprixtiñak»

Txaxioka jardun bear andirik ez neban izan. Naikoa izan neban Kale-andi'ra joan, esku-apaixua erriau eta apur-baten orekan egotea, egundoko arrantza egiteko.

Izan be, Kale-andia aukerako kala dogu orretarako.

Kurutze Birigarro entorren arnasa-estuka, larri-larri, brixak artuta, eta ez neban itaunketan jardun bearrik. Bera etorren kaeleraiño beteta: «Zeñi? Eta neuri adarra joten asi-ziñuan berak. Ederto emon be. Ze uste dau, gosekil-gosekil-gosekil zorri-biztu arek, bere barregarri nazala? Ezpagenki a nor izan dan! Orain izango dauz olango arrokeriak. Arranondo'ra prakak atzean txaplataz beterik etorri zanean ez eukan arrokeri andirik».

Kurutza Birigarro bere onetik urtenda egoan. Ezagun eban, Ganerontzean ezta olangoa, ez gitxiagorikpe.

Min emon eutsan eta, jakiña, min artzen dabeanak-ai! —esaten dau. Eta Birigarro'k agirian eukan min ebala.

Ez neban geiago bearrik, bestea, ari min emon eutsona, zein izan eitekean jakiteko.

Zebollitas izan zan: arranondotarren bizkar dirua polito egin eta ondo bizi dan kipuladuna.

Zerdala-ta izan eben beren arteko akillaldia ez eban esaten baiña Kurutza Birigarro'k. Eta or ikusten neban maluta-pean amu gogorra.

Ondo ezaguten dot Birigarro. Emakuma piña da, iñun piñik bada, eta garbia. Orixe bai. Berakpe ba dauko orren arrokeria, a dabillan tokian kaka andirik ezta ikusiko, amar atzamarrak sendo badaukoz. Eta, bere alde, beste au be esan bearra daukot: euskaldun-euskalduna dogu Kurutza, benetariko euskaltzalea: euskeraz jaio, eukeraz bizi eta euskeraz ilgo dan emakumea. Baiña, arranondotarra dogu. Ezin ukatu. Lau alderdietatik Arranondo'ko odola daroa, kresalez gazitutako odol bizia.

Arengana onez bazoiaz eta bere biotza eskatu, emotera prest jarriko yatzu, baiña, asarrez bazoiaz... enua esaten. Kaleandian jaio ta bizi dala esatea naikoa dogu.

Asarraldi ontan Kurutza'k ez eban errurik. Zebollitas'ek eban erru guztia. A asi ei yakon, elizatik etorrela, andik etorrelako, zer gura esaten; baiña, damutu ei yakon Kurutza'kin asia. Bere amar atzamarragaz oratu yakonean, gure Zebollitas larritu ei zan, egundokoetan.

«Atrasadia nazala, alajaiña, «ziñoan Birigarro'k» atrasadia neu. Nok esango eta zornez beteriko mando tartean jaio eta bizi izan dan asto-keletro batek. Oba leuke elizako bidea lenengotik artuko baleu, anka bat kanposatuan dauko-ta».

Kurutze Birigarro'k, baiña, ba ebillan zerbait. Elizara jira-bira asko egiñaz ebillan aspaldian, eta Zebollitas'ekpe igarri eutson ziur asko. Bestaldetik, amama egiteko bidean arkiten zan luzaro baiño len eta, ez ete eban, ori berori, ez esan gurako maluta-peko amua?

(8'garrenera)

KIROLAK

Mendigoizale kementsuak eurok!



Begnimale'ko elurtzetan

Euskalerri'ko beste erri askotan legez Galdakano'n be antziñatik mendigoizaletasuna sakon sartuta aurkitzen da, ori dala bide orain ogei ta bost urte, lenago Elexalde kirol bazkun barruan izandako mendigoizale batzuk, eta eurekanatu ziran beste gazte batzun laguntzaz, gertu eben, aurrerantzian, gaur arte beintzat, «Grupo Alpino Ganguren» izenaz ezagutuko zan mendizale bazkuna. Eta ez sortu bakarrik, laster, urte gitxitan ospe andia lortu eban euzko mendigoizale tartian eta bai ortik urten, kanpora be, mendigoizale orreen ibilketa bikain, aitz igokera trebe ta abarregaitik.

Bazkun guztiak edo geienak legez baiña, Ganguren'ek be euki dau, euki eban obeto, aldi ontan uxatuaz doialako, ganbera, zuloka edo batxe sakon xamarra, urtetxu batzuetan, izen aundia emon leutsen batzuk il, beste batzuk zauritu eta beste batzuk aspertu ziralako urtien erruz. Ara or, baña, non urten daben barriz gazte mordo kementsuak, leenguak baizen adoretsuak, batabestea poztuaz Ganguren berbiztutzen dabela; leenengo Euskalerri'ko mendiak ziar ta geroago, Reinosa'ko mendiak, «Picos de Europa» koak, Urbion mendidia ziar ta Aragoi aldeko Auñamendi, Pireneos'ko aitz erpiñetara Galdakano ta euzko mendigoizaleen izena eruanaz.

Aipatu garriena, baña, argazki ontan agiri diran Egiluz'tar Joseba, Eriz'tar Justa, Izkoa'tar Joseba-Mirena, Irastortza'tar Jabier eta Telleria'tar Joseba-Mirena, gazte euzkeltzale jatorrak egin dabena izan da, Auñamendi ziar, igaro zan Dagonillan 14'garrendik 22'gra:

Erritik urtenda, bultziz eldu ziran Zaragoza'ra; Heuska'tik Sabiñanego'ra, emetik Sallent'era elduteko berebillez, baiña ez bertan egoteko, bertara eldu ta laster, egun berian, Balaitus 3.151 neurkin goitiko mendia igon ta Piedrafrita'ko aterpera jatsiteko baiño, lo egiten.

Urrengo egunian, ez ei-eben iñora urten euri ta lañua gaitik, baña, bai irugarrenguan, Vignemale 3.303 neurkin goitik dabezan gallurretik igaro ta, Frantzi alderdiko Vaslon aterpera jatsiteko. Orretara, bertatik Gabarnie ziar «Roldan'en Brecha» tik igaro ta Goriz aterpera jatsiaz, ta bertan lo egin ondoren, Monte Perdido 3.335 neurkin goitiko aitza igon da, jatsi jakiña, Piñeta Arana edo Valle de Piñeta'ra emendik, urrengo egunian jarraitzeko Pico de las tres Mugas 2.690 neurkin, dituzan musterretik ziar Granja de Prados'en gabea igaroa eta, Pauslsu (3.010 neurkin) etik eta Estos igaroaz, ordu askoko bidean daguan Renclusa aterpera eldu ziran, bertatik urrengo egunian Aneto 3.404 neurkin goitik dituzan Auñamendi'ko mendirik goienera igoteko; eta ortik Benaskes errira jatsiaz euren ibilketa luze ta nekatsuai amaia emoteko.

Auñamendi'ko aitz eta aitzartiak pizkat ezagutzen eztabezanak' baña ezin lei kontaratu gazte kementsu oneek egin dabezan ibilketa ta aitz igote-jatsikerakin. Larogei ordu ibilli dira igon da jatsi, aitzik-aitz, arriarterik-arriarte eta betiko edurtzetan be bai. Ia bederatzi egunian, eun ta berrogei kilometro inguru Sallent'en urten ta Benaskes'era, esandako gallurretatik igaro-ta... Eta, orregaitik da txalogarria euzko oneek egin dabena, erakutsiten emon dabelako euren zaletasuna, gertakera ta biziera garbia egiten daben gazteak noraño eldu litzakezan bai kirolketan ta Aberria'ren beste gai guztietan bere, oneek legez, beti dagozalako gerturik. Gure AGUR maitekorra eskintzen dautsegu eurie, agur bero ta txalo sutsuz.

ALTUNA'TAR JOSU

EUSKERALAGUNAK

Izen orregaz eta bear diran baimenak eskuratuta, alkarte barri bat sortu jaku Eibar'en, euskerea eta beroni dagokiozan arazoak zuzendu eta bide onera ekarteko. Orrela diño bazkun onen araudiko bigarren aleak.

Bizkai'ko «Euzkerazaleak» antzera eratu da bazkun barri au, eta bere egikizunak Eibar'ko uri-barrutian beteko dauz; ortik beste gipuzkoar errientzako erudu izan eta Gipuzkoa osorako orrenbesteko bat egiteko bide izan daikela garbi dago.

Oraingoz beintzat, eibartarren artean euskerarentzako maitasuna zabaldu; ikastaro ta aretoak aukeratu; ikastoleri lagundu, bai lege bai diru bideetan, ososoan euskerea goimaillara jaso, ain euskaldun izan dan erri maite orretan.

Lenengo buru batzarrean urrengo jaun oneik agertzen dira: Lendakari, Garmendia'tar Joseba; Lendakari ordezko, Larrañaga'tar Martiniano; Idazkari, Idoyaga'tar Andoni, eta Diruzain, Artamendi'tar Augusto.

Batzarra osotzen eta oneri laguntza egokia emoten ara beste jaun oneik: Echeverria (gaur errian alkate) Ugarteburu, Franco Albizu, Garate, Sarasua, Basauri, Cruceta, Moina, Eguia, Valenciaga eta Urizar. Danok zintzo eta bero-bero gauza aundi bat egiteko asmoan.

Urrengo baten, ta lenengo pausoak emoten asi ondoren, zerbait geiago esango dautsuet, ala ta be, auxe esan bear, bazkun ori eratzen ebillazan bitartean ez dirala lo egon eta aurrerapen aundiak egin dauz Eibar'en euskerak, bere zabalkunde eta ikastaro arloan.

KUNBO

ITXASTARREI

«Agostuaren amabian... Ekarri katxalotia... Egia da, neuk ikusi dotelako...» Ekarri ebana nor zan jakin gurez ba'zengoze, itandu edozein Bermeotarrari. Abestiak berak diño. «Puf! Artzan enkalleta itxi».

Orain esatera natorranak, naiz ta Dagonillaren amabian izan, ez dau zer lkusirik. 1.912 garren urtea zan. Santa Klara egunez. Bildurgarrizko galerna batek, kosta guztia ondatuta utzi eban. 116 gizon iruntzi ebazan, Bermeotarrak. Gure erri osoa negarretan. Alakorik ez da geiago ezagutu, eta bear be ez. Ondiño bizi dira asko, ordukoa ezagun dabenak, eta orduko utsunea bete ez dabenak.

Egun aretakoa gogoan emen datozan bertsoak egin ebezan, Fermin Imatztarrak eta Txirritak. Orain dirala zazpi urte, Donibane-ko arrantzalientzat egindako liburu batetik artu doguz: Jeiki Jeiki aldizkaritik.

1

Neure biotz gaizua, eskaka ari yat,
bertso bi ipintzeko baldin baderitzat,
Agostuan amabian sortu zan ekaitzak
Egin dizkigu oso deskalabru gaitzak,
Makiña bat persona ondatu du beintzat

2

Penak esplikatzera orain naiz abian,
motibua dan gizan mintzatu nadian,
milla bederatzireun eta amabian
gaiñera agostuko illaren erdian
desgrazi au pasa da Kantabriku Kostan

3

Kulpa gabeko asko badu eramana
bakoitzari errezau, Aita-gure bana,
ain da negargarria egin deuskun lana,
anparo gabe utzi ainbeste aur ta ama,
sinisten be gaitz da aurten pasa dana.

4

Agostuko illaren amairugarrena,
Guretzat argitu dan egunik txarrena,
izan daigun kupira danak alkarrena,
gogoratu utsarekin lertzen yat barrena,
au da paraderua Kantabritarrena.

5

Eun da amaseikua Bermeo bakarra,
aurten ez dabe izan suerte ederra,
erri txiki batentzat ai ori negarra,
aurrak aita falta dau ta amak senarra,
badauke bai, anparo on baten bearra.

6

Itxasoa ein yakun asarratzen asi,
Bendabal aldetik zan aizea nagusi,
nor bere puestuari ezin eutson eutsi,
danak zatitu ditu, iñor ez dau utzi,
Gipuzkoan bertatik ez da falta gutxi.

7

Eun da berrogeta iru urren dira danak,
arrantzalietatik ondatu diranak,
gure Jaungoikuari kontua emonak,
guk egin bear dogu, bizirik garanak,
aietzaz erregutu, biotza dauanak.

8

«Aita San Inazio» belako barkua,
amairu gizonekin urpean sartua,
beraren imajiña an eban santua,
Habana-ko partian dago kostatua,
tenpestade gaixtuak jo ta puskatua.

9

Egur biren gaiñean gizon bat jarria
ai, zer ete zan aren orduko larria,
lagunak bera joan ta estadu urria
ez da Donostia-ra errez etorria,
ikusi dau bidean ixtillu gorria.

10

Senalle ibilli dala arrixku andietan,
arrain txarra besterik ez dan tokietan
illaren amabostan goizeko seiretan,
baporeak artu zun beraren deietan,
naikoa supritu dau paraje oietan.

11

Izena Daniel dau, nonbria Eskurtza,
jenio bizikua, espiritu utsa,
ta baliatu yako Jaunaren laguntza,
oso txarto trataua sartu zan onantza,
barriz egon liteke joan gabe arantza.

12

Iñork galdetzen badau: gauz ori zelan (da
nik erantzungo dautsot: egia olan da,
iñor dudan badago, betor eskolara,
anuntziatu eban orduko bolara,
graziak milla bider, Aita Orkolaga.

13

Ai gure biotzeko Aita Orkolaga,
Beraren eskutikan ez gaizala laga,
Orain bezela jagon eguna ta gaba,
barriz itxaso ortan ez gaitezan traba,
bedorren talentua gauza bearra da.

14

Jainkoa portatzen da danentzat on- (dradu,
gaiztuarentzat igual, ain biotz ona du,
emonaz irabazten dogun ainbat gradu,
itxaso sagratua ur guztien buru,
arek be gurutzia errezpetatu du.

15

Jesus maiteak emon daiala argia,
oraingo aldi onetan badago premiña,
Euskaldunen artean, au da pikardia,
Bermio-tik galdu da jentien erdia,
lutoz jantzia dago kosta Kantabria.

16

Ango itxas-kolpiak ta urro borroiak,
iruntzi nai ebazan mendi ta erriak,
pasa dira desgrazi ikaragarriak,
orra amasei bertso oraingo barriak,
Fermin Imazek eta Txirritak jarriak.

Oar: Itz eta aditz banaka bat, aldatu egin doguz, argitasun eta batasunerako. Bertsolariak, Aita Orkolaga bat aipatzen dau, Idaztiak diñoanez, itxasjagole zan Igeldon.

ERRENTERIA TAR JOSEBA ANDONIK

GAZTEIZ

Umeen euskal jaia.—

Agur, jaunak; agur terdi...

Itz onekin agurtzen gera euskaldunak batzen geranean. Badakizute agur gure aurrekoak erabiltzen zuten ber-bera dala euren batzarretan. Guk, umetxoak, aurrekoengandik ainbat ikaskizun artu bearrian gera. Baita ere ikasi bearrian gera, eta gaur egiten degu, errikide, euskaldun eta kanpokoak agurtzea. Au ondo ikasten badegu gure ondorengoak ere itz onekin agurtuko dira.

Dakizute, gañera, Araba ta Gasteiz onetan gure izkuntza lo-sorroan egon dala. Gaur jaun-andre ta gaste askoren lanagatik esnatu da euskaldun zaletasuna, Bearreko da esker ona azaltzea esnaera onen alde lan egiten duten guztieri. Beste euskal errietatik etorri zeratenak ere billera onetan azaltzen duzute zeuen baietza ta txaloa neketsu dan lan au ezagutuaz, guk ez bai degu izan zuek askok bezela etxean, kalean, eleizan ta ikastolan gure izkuntza maite au ume-umetatik entzuterik.

Badakigu erakutsi digutelako, izkuntza Erri baten izakeraren azalpena dala, beaz ez daigun izkuntza soil-soil ikasi ez bada eze berakin batian biotz barruan artu dagiguzen gure aurrekoen ainbat gauz on; izan gaitezan euskaldun itzez eta izakeran. Izakera onen oñarri bezela jarri daigun euskaldunen alkartasuna, egun eder onetan degun alkartasun kutsu gabea. Gure jaiak dira —gaurko au ere bai— euskal izakeran azalpen bat eta arikulturan ezaugarri bat; jai auek izakeran bertan dute asustrai.

Euskaldunak abestietan goratzen ditugu gizon ta gizontasuna amandre kutuna, anaiarreba maite-maiteak, gure baserri, lur, baso ta mendiak, itxaso zabal ederra era bai.

Abesten dugu alaitsu ta itun, zer nolako giroan geran; jolaseta indar-neurtzeak dira eta pillotarien oiñ ta besoen arintasun azkarran dantza dotorea mundu zabalean txalotzen da. Abesti, jolas ta dantzak ematen digute batasuna, nun-nai azalpen oyek guztiak euskaldun dira, bai Naparroan, Bizkaian, Gipuzkoan, Laburdin, Zuberoan eta Araban. Bakoitzak bere nortasuna du baña guztiak gera euskaldunak.

Geyago luzatu barik, agur, barriz ere: Jolastu gaitezen ta gure jolas, abesti ta izakera garbitasuna izan dedilla Erri guztien tarteko alkartasuna sendatu ta indartuko daben euskaldunen ezkeintza, es bai gera begirapen laburrekoak, mundu zabalean nai dugu izan dedin gaur emen degun maitasun alkartasuna.

Agur, jaunak, agur terdi...

* * *

Jayak asterakoan umetxoen «alkateak» egin eban itzaldia dozue ori, ezin dautsagu ezer besterik ezarri, auxe bakarrik: Jai zoragarria izan zala.

OLARITZU

EIBAR

ZULOAGA

Ertilari asko ta aundiak izan ditu Euskalerriak beti. Kondaira gogoratu pizkat.

Euskotar ertilariak Euskalerriaren izenean barik beste erri baten izenean agertu ta ezagutzen izan dira tamalez. Euskalerriak izan dauan ertilari aundiospetsu bat gogoratu nai dot gaur: IÑAKI ZULOAGA, margolaria. Semez Eibartarra. Eun urte betetzen dira aurten jaio zala ta merezi dauan omenaldi bat egin nai dautso Eibarrek. Eibarrek ezeze Euskalerri osoak parte artu bear leuke omenaldian. Zuloaga bezelako gizonak ez dira beti agertzen eta onelako gizonak izen aundia emon oi dautsoe euren sorterriari.

Egia esan Aberritik kanpoan luzaro bizi izan zan, baiña bere sorterria maite ebala sarri erakutsi eban. Zumaian egin eban bere kabitxoa, bere bizi-lekua. Arrateko Amari be bere lau lan ezkiñi eutsazan. Margolari aundia izan zan Iñazio Zuloaga. Danetarikoak egin zituan; alan be iru eratan banandu daikegu, au da; oitura-margolari, gizartemargolari ta izadi-margolari lez agertu daikegu Zuloaga ta danetan aundi. Alan be izadi-lanetan agertzen da aundien. Margolariak azkatasun geiagoz jokatzen dau izadian; zintzotasun eta biotz geiago agertzen dau. Diñoenez Zuloaga geiegi zabaldu zan, bakartadea, ixiltasuna maiteago izan ba'leu, bere lanak sakonagoak, osoagoak izango ziran eta bere izena be gorago izango zan; baiña bere akatzak ba'ditu be, margolari aundien artean euki bear da ta Eibarrek bere seme ospetsu ta aundien artean euki leike.

Euskalerriak margolari aundiak izan ditu, Iñazio Zuloaga bat.

Atzerriko ortura igali-billa joan barik, geure gauzak, geure gizon aundiak gogoan euki dagiguzan eta alde guztietan zabaldu euren izena.

Aintza ta gorapena Iñazio Zuloagari bere jaiotza-eun urtebetetzean.

GOIRIA

GORLIZ

Udea da ta, kaleko lagun askok, euren deskantsualdia pasatzeko bakarlekua billatzen doaz. Orretarako, non toki ederragorik Gorliz aldean baiño! Batetik itxaso ederra, zugazpeetan gerizpe ugari; atxarteetan egonlekuak onak.

Aurten zenbat-gure lagun etor da onantz. Jai ederrak euki doguz, dantzariak, karrozak eta abar. Gauza ederragorik ba ete da, umetxuak euzko jantziekaz, lau ta bost urtekoak. Abarka ta txapel, dantzan lotu barik. Eleiz ondoan, naiko lagun euren adi: txalo ta txalo.

Igandeetan ez dago non para bere ondartzan: jentea emendik eta jentea andik. Asko ta asko goizerik datoz, egun osoan emen egoten dira.

Agostuaren lenengo egunetan, negargarrizko egun bat izan eben ona etorriak. Urduliz eta Gaminiz bitartean, tren bik alkar jo eben, eta 33 lagun il ziran. Sendi osoak il ziran. Inguru dana geratu zan itzalduta. Egun beteko poza aren azken eguna. G. B.

Onek diñodazan bitartean, emen naukozue ni, Gorliz'ko geixo-etxean, ainbeste illabetean.

Gurago neuke, oia utzi ta lagunekaz ortik ibilli, baiña ondo noala jakinda poztu bear.

Besarkada bat Gatike'ko guztioi, eta euskaldun guztioi.

ARANBURU'TAR BITXOR

BEDIA

Igaro dan Iralla'ren 8'an «LAGUNONAK» gizarteko, «UMETXOEN» txistulari taldeko gaztetxuak egintza txikitxo bat euki dabe Lemona'n.

Uste dot danori atzegin izan jakuzela. Entzuten ziranak ikusi bear, an zan ikusten ebena eziñ ziñestea. Gaztetxuak, «iru zulodun» makilla orrei etaraten eutsoezan soiñu politak, gogoz txalotuak izan ziran. Au izan da umetxo onen bigarren egintza.

Aurrerantzean danon laguntasunagaz olan gure geunke jarraitu. Ez ete da oso ederra amabost umetxo txistua joten ikustea?

BARRENETXEA'TAR JULEN

MUNDAKA

«JUBILAZIÑOAK» DIRALA TA...

Egun onetan, ta ixil-ixillian beti bere oitura izan dan legez, «erretira» yaku parrokijan beren lanetatik, orain arte mundakar abade lagun edo «coajutore» izanikua Sagarraga'tar Polendin jaun agurgarrija. Abade zintzoa bera eta benetako euskeltzalea. Igaro zan urtean eta baita ixillian bete ebazan bere berrogei ta amar urte lenengo mezea esan ebanetik. Izatez ta biotzez mundakarra Jaun-Goikoaren bideak erritarren artean, batesbe baserritar ta itxas-gizon artean zabaldu dauz. Eta maite ebazalako gure gizonak ta errija, bere betiko zaletasunak Mundaka'ko edesti, oiturak eta izketak ziran ta dira. Eurak batu ta zabaldu bere biziko amets gozoenak. Amaikatzu onetariko lanak Azkue ospetsuak berengandik artu ebazen, baita Orixe jakintsu, ta Otxolua erritarrak. Asko ta asko, egiz artu gendun errriko Talan ta inguruetako bidietan bere ikazkizun eder ta zirikadak gure euskerea erabiltzeko. Onetarikoak gara gaurko euskeldun idazle aldra bat, umetan mundakako erdeldun utsak ta beste pillo aundiago bat gaurko etxeko-andrak, ele bitan gitxienez irakurri ta itz egin dakijanak. Danok opa dautsagu gure Polendin jaunari bizi luze bat, geyago zabaldu dagien gure izate on ta gure euskera maitea.

Urte askotan ba, Zorijonak!

Bigarren «jubilaziñoa» gure Gondra eta Garro D. Jose, erriko maisuarena dogu. Zein gaurko mundakar artean Bilbao'ko illeroko edo asterokoetan eztauz irakurri gure erriko izparrak, MAISU ezizenagaz ! An eta emen gure Maisu'k itxi dauskuz gure erriko antxiñako istorijak, ipuin-esanak irri-barreka, joskera garbi, alai ta errezean. Onez gañera bera ereslari bikaiña dogu. Ze instrumentu eztau jo ! Txistua, gitxarrea, pianua... Baita askotan bere «karikatura» alayak, eta dibujoak gure eskuetan izan doguz. Gizon osoa bera iru milla txilibito jo arren. Bere ikasleakaz batera gure zorijonik beroena artu bei, gure adiskide onak. Jarraitu onela D. Joxe urte askotan. Zorijonak ba berriro.

ARGIZALE

Orra liburu eder bat, euskal-antropologiatzaz, bilbon ospaturiko errien-arteko lenengo astean jasoriko lanekaz

«La Gran Enciclopedia Vasca» ospetsuak, irarkolara bialduta daukaz, aitaturiko Aste orretan egin ziran itzaldi ta enparauen idaz-lanak. Joan dan udabarrian, Bizkaiko Aldundian ospatu ziran itzaldiok. Liburu eder onetan ezarten doguz egilleen izenak. Liburu au eskatzen dabenei, gordeko dautsegu. Eskabideak egin beitez zuzenbide onetara: «La Gran Enciclopedia Vasca», c./Prim, 43-3.º, Bilbao.

EUSKO-GIZA-IZTI edo antropologia. (Bilbon, jorraillaren 6'tik 11'ra ospaturiko, Errien-Tarteko Lenengo Astea). Euskeraz, gazteleraz, prantzeraz, ingelanderaz, errusieraz eta japoneraz:

—**Kondaira aurreko euskal-gizona ta bere gaurko egozpena.**—Barcelona'ko Ikassailleko Jakintzan, Giza-Iztiko irakasle dan Jose Maria Basabe'k egiña.

—**Odolezko agerpenen izatea gure errian.** Au, Jose Luis Goti Iturriaga'rena. Sendagai ta Osatebakintzako osagillea.

—**Sikolugu arazoak, gizartekoak eta legezkoak, Euskal-Erriko sorginkeriari buruz.**—Julio Caro Baroja'rena. Madrid'en Etnologi Erakustokiko zuzendaria.

—**Euskotarren pentsaera ta arpegikera.**—Jose Manuel Barandiaran'ena. Naparroako Ikastetxe Nagusian, Euskal-Etnologi saillean irakasle dana.

—**Euskal-Sikologiaren bidez, Bertsolarien argitasuna.**—Manuel Lekuona'rena. Euskaltzaindiko lendakaria.

—**Euskal-abestien morfologi ta berezitasuna.**—Francisco Escudero, Donosti'ko Eresi-Ikastolako zuzendariarena.

—**Gure Erriak legeari buruz daukan zentzuna.**—Adrian Celaya'rena. Deusto'ko Ikastetxe Nagusian, Eskubide arloan Doctore ta irakasle dana.

—**Kondairako mende bitan euskotarrei begira.**—Andres E. de Mañarikua'rena. Deusto'ko Ikastetxe Nagusian, Eskubide arloko Ikasali-buru, ta, Bizkaiko Kondairari dagokionez, irakasle dana.

—**Izkuntza ta Jakintza.**—Luis Mitxelena'rena. Salamanca'ko Ikastetxe Nagusian, indoeuropea deritxon Ele-jakintzaren irakasle dozu, ta Donostian, «Julio Urkijo» Elkarteko zuzendaria.

—**Euskaldunen Arri-aro ta Erdi-aroatzaz gogoketa.**—Ignacio Barandiaran'ek egiña. Zaragoza'ko Ikastetxe Zarrean, Kondairairakaslea.

—**Bilbotar eta Bizkaitarren arteko betiko bekaitza.**—Manuel Basas'ena. Bilbo-Udaletxeko idazti-zaia ta Bilbo ta Deusto'ko Ikastetxe Nagusiko irakaslea, Aintziñako Kondaira arloan.

—**Legen-eria, Euskal-Erriko erromatarren artean.**—Juan Maria Apellaniz'ena. Bilbon, Eleiz-Barrutiko Erakusketan zuzendari, ta Donosti'ko «Aranzadi» Elkarteko batzarkidea.

—**Euskal-arrantzaleak Terranovan, XIII' garren aroan.**—Vicente Palacio Atard'ena Madrid'go Ikastetxe Nagusiko irakaslea.

—**Euskal-Errian geure arteko artu-emona.**—Miguel Angel Astiz'ena. Izparkaria ta Euskerazaleak Elkarteko batzarkidea.

—**Aurretikako ikasiak eskualde baten.**—Leopoldo Zugaza'rena. «Guerediaga» ta «Euskerazaleak» Elkartietako batzarkidea.

—**Aintziñako Bizkai-euskalkiatzaz dakiguna.**—Alfonso Irigoyen'ena. Euskaltzaindiko batzarkidea; ta Ele-jakintzako irakaslea Deusto'ko Ikastetxe Nagusian.

—**Martinez de Landecho bizkaitarraren nortasuna, Guatemala'ko lendakari bezela.**—Carmelo Saez de Santamaria Josulagundikoa, Deusto'ko Ikastetxe Nagusian izkuntz arloan zuzendari, ta Pilosopi ta Ele-eder saillean irakasle dana.

—**Gipuzkoako mendi-gunetan, adarduntzarrak.**—Jesus Altuna'rena. Donosti'ko «Aranzadi» Elkartean, Paleontologi Saiotegian lan dagiana.....

ERRIETAKO BARRIAK

Arratia

Eguneroko izparringirik eztogun ezkero zarkiratsak ikututako barriak be pozpozik irakurtzen doguz sarritan, bakoitzaren erria naiz adizkideen baten izena ikusten dogunean batez bere. Nire arlo ontako barriak bere, gaur goizaldeko ordubatak baiño lentxoagokoak dira, baiña, AGUR'en irakurle diran arratiarren eskaria dan ezkero, emen naz ba Arratiari buruz zer-edo-zer azaltzera etorrita.

LEMOA

Lemoarrak betirako nagitu zirala uste genduanok, egiz eta benetan poztu giñan gure utsagaz. Oraingo ontan bai astindu dozuezala bildurra ta alperkeria. Odol barria, arnasa garbia ta osasun bikaiña emon dauskuzue erakustera erriko jaietan.

Igurtzi begiak, ikusi, ta jarrai aurrera guztion onerako ta erriaren osasunerako.

Makallo-Pilpilketa

Batzuk zariaren billa ari ziran artean beste batzuek ospe ta izenaren gorakada lortu gura eben. Eta oneik, etxean astitsu ta baketsu gertaturik euken kazuelako gozo-gozoagaz tripa bete emon eutsoen, ixil-mixilka ekarritako bilbotar izparremaille edo periodista bateri. Salataria zeanuritarra izan dan arren, parka eske makurtzen naz ixilleko gauzatxoak argitaratu dodazalako.

YURRE

Oillo-arrautzak lako txingor-arriak zati-txikitu ebazan txellaturik geienak barriztuta ikusi genduzan, bai-ta ala-olako estalkiz obuan estalduak bere ezbearraren lorratza agertzen ebela. Zaparrada ikaragarriak ezeban izan eleizarenganako kupierrukirik, eta malluketa gogorraren bidez tellatua zuloturik ona emen Igorreko eleiza diru-laguntza gorriaren bearrean.

Izango dira gogo onez eta ugari emongo dabenak, bai-ta esku-urriak eta eskurik zabalduko eztabenak be. Atzenekoen zio edo motiboa emen dogu: «Jaunaren aurrean guztiok bardiñak garen ezkero, zergaitik ez eskubide bardiñak Beraren etxean be! Alan alde batekoak alan bestekoak, danak izan ziran erriko semeak. Batzuren izenak eleiz-ateburuetan idatziak ikusten doguz, besteentzat barriz etzan izan tokirik».

Ozpiña zarrago ta garratzago, gatza beti gazi. Beraz, nire uste apalez, ilten diranai lurra, eta eleizetan aintz eta begirapenezko malla bardiña.

JAIAK

Lenengo egunean zer ikusirik gitxi ta bizitasun gitxiago; bigarrenean, begi-belarrientzat gozokiak.

Arratsaldean arratiar eta galdakaotar neskatillen arteko ostiko-pelota. Arratiarrak, 2; galdakaotarrak porrot. Gizonezkoentzat atsegiñezko begiraldia.

Illunabarrean kitarradun arratiar abeslariak. Lenen-zaria Areatzako Patxik jaso eban, Itziar-Loli bikotearentzat izango zala uste bagenduan be. Aurkezlaria Lemoan izan zan morroskoa berbera izan zan emen bere jaiaren asieran eta amaieran bertsoz agurtu ginduzana, gure Arder, Gorospe andia. Benetan sakona ta errotsua, adizkide, ire askenagur mamitsua.

Ubetxaga'ko beitegia su ta gar ezereztuten zan artean, irukote txalogarria jarri yakun begien aurrean, uste gabean. Tayone, narroskiño edo pandaretakin, umetxuena; Kepa Andoni, besartean eukan kitarra baño andiagoa etzana ta Itxarone, andiena, irurak ume-umeak, lemoarrak. Artu ta gorde egizue aldizkari onen ZORION zintzoena.

OTXANDIANO

Otxandion aurten izan dan txapel-jaian txapela buruan jartzen ezeze txapelpeko buruagaz zelan jokatu bear dogun irakatsi ederrik izan gendun.

Orain iru urte lenengoz ospatu zanean, larriak jota etxeratu giñan, mikrofono edo dalako aren aurrean izan zan gazteak euskereari egin eutsazan lotsarizko irain eta zapuzketak entzun ondoren. Otxandioko muga barruan ezta izan arrezkero iko eztitsurik, piper gorririk eztata masusta baltzik.

Oraingo ontan Asua'tar Ruiz erriko seme zintzoa izan gendun aginduak emoten eta jaia zuzentzen. Beraren euskerea gozoa, ta batez bere ugaria asi zanetik amaitu arte.

Ona emen Bulkanoren errikideak, buruargi ikusmen zorrozdunak, tiro bakarragaz txori bi eratsiak. Txapelaren bidez, «por educación» ateostean lagarik, Aitor'en izkuntzari tokia eskeiñi ta oso-osorik emondakoak.

Agur Otxandio! Zeuok ikusi ta ezagutzeko asmoz or izan zan AGUR onen zorion eta txaloak jai-eratzalle ta enparauai.

LANDAJUELA'TAR A.

Meñakabarrena

Erri Txikietako Kezkak

Mungia'tik Bermio'rako bidean, Larrauri'ko parean eskui-aldera izten da Meñaka'ko erritxoa Sollube mendiaren babespean.

Eliz-inguruan, etxe-banakak, pelota-leku barria, erriko eskola, taberna t'abar. An-or-emen, beste etxe batzuk bana-banaka ta mordoxka beste batzuk.

Eliz-ondotik kilometro batera, Meñakabarrena auzune polita, kondairan Meñaka'ren ama lez agertzen dana. Ementxe ezagutu genduan Meñaka'ko jauregi ospetsua. Orain aztarrenik itzi barik, bere izatea galdu dau. Auzuneko umentzat eskolak eta eliza txukun bat jaso ditue bere lur gaiñean.

Erri polit eta baketsu onetan, bere kezka ta ondoezak nabaritzen doguz aspaldian.

Erri baten gaur nai-ta-naiezko diran laguntasun bagarik, bertan-beera itzita dago Meñaka.

Sarrera bi ditu erri onek: Bata, Larrauri'tik eliz-alderantz doana ta bestea, Meñakabarrena'tik zear eliz-aldera joten dauana. Biak, zein baiño zein lotsagarriagoak. Zulo ta mailla andi arreek neguan urez betetzen diranean, ez da giro izango.

Argi-indarra, Meñakabarrena'ko etxerik geienetara, ez da bear dan lez eltzen. Gaureguneko bizitzan argi-indarrez erabiltzen diran tresna ta tramankuluak, telebista, izoztegia t'abar erdi-alperrik dagoz etxe askotan.

Bearrizan oneen aurrean, agoz-ago dabillen galdera: *Ze eginkizun dabe erriagintariak arazo oneek konpontzea izan ezik?...*

Baiña iztilluak ez dira emen amaitzen. Meñakabarrena'n moja-etxe bat dago; Karmeldarrena ain zuzen. Etxe au, erdel-kabi lotsagarri bat da SOLLUBE'ren egalean bertan. Gaitzerdi eliza bat zabalik ez ba'leuko, baiña auzunekoen eta beste ongille batzuen laguntzaz jasotako eliza bat dauko ta jende mordotxoa batzen da jai ta astegun. Zertarako? Astegunean beintzat *kanpoko erdera* orretan meza «entzuteko». Negar-guria emoten dau sarritan ango mezak. Lenengo, euskerazko meza-liburuak eskuratzeko, nekeak igaro bear dozuz. Gero izaten dira gerokoak! Erriak euskeraz erantzun eta mojak erderaz, alkarren leian; abotsa zolien ateraten dauana nagusi. Lenengo irakurgaia irakurri bear danean, ondiño nabarmenago: Erriko taldetik batek euskeraz irakurten ekiten dautsanean, mojen taldetik, beste bat asten da lan berean erderaz. An urteten dauan konpuesto ta naaste-borrastea Jainkoaren itza ala diabruarena dan ez dakit.

Alkarte bi ikusten dira argi ta garbi eliz aretan: bata, berezkoa, bertakoa ta bestea ez dakit nundik etorria; bertakotu barik, bere lekutik kanpora dagoana.

Noiz konturatu bear dabe Meñakabarrena'ko mojak, kristiñauak izan nai ba'dabe, bertakotu bearra dabela? ez dala bardin, naiz ta klausurakoak izan, erri baten egon naiz bestean egon? Noiz konturatu bear dabe, tokian tokiko izkuntza ta izaera bereganatu bear dabela edo andik anka egin? Norentzat dira ba, Elizaren irakatsiak?

Ona emen (denporarik galdu ez dagizuen) gai onetzaz diarduen Eliz-irakatzien zenbaki batzuk: (Pacem in terris, 96), (Pacem in terris, 95), (Christus Dominus, 35), (Christus Dominus, 33), (Lumen gentium, 46), (Misiones, 25a), (Presbiterorum ord., 10), (Populorum progressio, 72) eta abar eta abar...

Toki guztietan izaten dira buru-austeak. Meñaka'n ba-dira bereak. Azalean eta barruan erriari ikutzen dautsen akatz batzuk baiño ez ditut jarri emen eta andi-andika jarri be. Bertako irakasle ta beste umeen ardura dabenai eskerrak; bestela, Meñakabarrena'ko umeak erdera farra-farra besterik ez, eben egingo ta euskeraren otsa oso motel entzungo zan onezkero.

Arazo onen antzerakoak milla izango dira euskalerriko bazterretan. Erria barru ta kanpo obeto ezagutuaz, euskalerria euskaldun lez aurrera ateraten alegindu gaitezala danon artean.

BARAIZARRA'TAR L U IS

Usansolo

BURUERAK AGERTU

Azkenengo idazkian esan neban lez, norbaitek buruera bat badauko ta azaldu, bere auzoak aberasten diardu jakin barri bategaz.

Buruera oneik ez dira sarritan erakutsi aundiokoak izango, baña edozelan be, ainbaten ontzat artuta izango dira. Au dala ta, guk Usansolo'n zelan euskerazko meza egiten dogun, emen agertuko dot. Baña lan onetan asi baño len, eskerrak emon bear dautsadaz gure eleizburu dan D. Victor'i, berak emondako eskubide eta baita be bere euspen edo laguntza biotzekoagaitik. Eta ezin ixildu D. Estanis'ek dagiana gure abeslari taldearen alde.

Euskerazko meza aberastu gogoan, alkartu zan Usansolo ta Labeaga'n abeslari talde bat, baña ez talde onek abestiak ikasi ta mezatan eurak abestuteko, erriko lagun artean sartu euren buruak ta danok abestuteko baño. Onelan erriagaz bat eginda, au berau izango da abeslari. Talde onek beste buruera bat be artu eban.

Erriko abesti zarrak eta barriak artu eta eleizako itzetara biurtuaz meza onetara ekarri. Erria obeto gertatzeko, igande eta jai guztietan, euskerazko meza asi baño len, abesti barriak entzuten dira, abeslari buruaren agoz.

Irakurgaiak, meza eskeintzan daben sendialdeko batek irakurten dauz sendi au euskalduna ba'da, edo beste erritar batek olan ez ba'da.

Opari garaira meza eltzerakoan, len esandako sendiartekoak erriko opariak artzen dabez, bañan bakoitzagana joanda, onetarako ipindako otzaratxuekaz.

Opari oneik mai baten utzi, ta mai orretan dagoezan ogi ta ardoa oindira edo aldarara daroez erriaren oparitzat.

Ez arritu. Ez da astirik galtzen. Eleiza aundia izan arren, naiko otzaratxu dago, opari-abestia abestuten dan artean, lan ori egiten da, ta erriak izaten dau meza egokiagoa.

Usansolo'n onetara izan da beintzat.

Euskerazko mezakaitik beste zaletasun bat dabil, era onetara asi giñan ezkeroztik.

Norbaitentzat, idazki au laguntza izan ba'da, poz-pozik geratuko naiz.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Mungia

ESNEA BEERA, BASERRITARRAK BEERAGO

CONCORDIAN esne arasoari buruz irakurri dodan artikuluari jarraituaz, argitasun apur bat geiago emoteko asmoz, idaskitxu au dakart zuekana.

5,50 peseta gaitik litro bat esne

Emengo baserritarren diru-iturri nagusiena esnea da. Gainera esnea bakarrik dauka saldua. Nekasariak egiten dituan produkto gustietatik, esne saltzea bakarrik dauko organizatua. Gaiñerako produtoak, leen lez, artesani garaian lez, auto-konsumo garaian lez, saltzen daitu.

Ez da arritzekoa beraz, gaiñerako gauzak baztertuta, ia era bat esnera jarri bada, esnera espezializatu bada.

Orain nork produzitzen dau esnea 5,50 tan? Ez dago olako bibotedunik.

Ona emen porzentaje batzuk konturatu gaitezan: 1966. Garagarrillaren 1'an, izan eban esneak azkeneko igoaldia. Arrazkero esnea-artzeko gastuak ara zenbat igon diran:

Eskulana	% 38
Esne-beiak	% 25
Obrak	% 32
Makinaria	% 23
Pentzuak	% 16
Batez-beste kostuak	% 27
Bitarte guzti orretan esnea	% 5

Baserritar batek peoi baten erdia be ez dau irabazten:

Peoiak	45-50 peseta orduko
Nekazariak	15-20 » »

Eta esnearen gora-berak barriz onexek dira:

Udarako salneurria	5,50
Negurako salneurria	6,50

Au da «Zona norteri» daokiona. «Zona norte» onetan sartzen da Euskalerria.

Beste lurralde batzuetan salneurri garestiago jarri dabe. A. B. Estremadura eta Burgos aldean 5,75; Aragoi ta erdiko Kastila aldean 6; Andaluzia aldean 6,25; eta azkenez Madriden eta Mediterraneo itxas ertzean 6,75.

Orain arte esan doguna ikusi ondoren, gaurko lana danori itaun batzuk eginaz amaituko dot:

Zergaitik esnea 5,50'an?

Zergaitik «zona-nortean» 5,50'an eta besteetan garestiago?

Orra or gure baserritar guztien artean, ikusten dan arazoa. Baina, ikusten ete-da ze bide artu aurrerantzean?

LUGIN

Galdakano

Jai atsegingarri bi izango doguz errian Iralla'n azkenengo ta Urrilla'n leenengo egunetan, azkenengo urteotan errian sustraiturik dagozan jai bikain bi; bata euzko gai utsezkoa, bertoko gaztediak gertutakua eta, bestia Bizkai'ko bost'garren perretxiko azalkuntza-leiaketa, bertoko «Peña Santa Cruz» jolasjakintza bazkunak eralduta, Bizkai'ko Aurretetxean laguntzaz.

Gure gaztediak daukozan asmuak sakonak, andiak dira ta, beraz txalogarriak antolatuten dabiltzan guztia lortzen badabe, aurkituko dabezan eragozpenak eztira txikerrak izango ta, leenen txindi arazua ta, urren baimenanak, lege barruan ospatuko ba'dira. Esaera dan lez, nai dabenak geiago egiten dabela aaldabenak baiño ta, orretara izango dalakuan gara, jai orreik egi biurturik ikusi nai dugunok.

Gure gazteok egin gura dabena ezta egun bat bakarrik, aste oso bat baño, euzko-jakintza aste bat; ara emen gertu diran itzaldiak: Irallan 28'gn. Olerkiataz; 29'gn. astelenan, Etxegille talde batena, euzko etxegintzataz; 30'gn. lutelezti (geografia) dalata; Urrillan batian, «Ama-Lur» mintza'ren antzezkera ta bere azalpena, beren egille batek. Illan 2'gn. itzaldia, euzko eresiataz, musikataz, Arana'tar J. A.'ren bitartez; 3'gn. Larunbatan, euzko dantza ta eresi jaia. Eta igandean euzko umetxuen jai bikaiña. Eberdian taldearen igaro-aldia, erriko txaide naguzia ziar. Eskatu ete leizkigu ezer geiago gure gazte kementsuei orainguan! Ez genduke besterik nai gerturik daben egitarau guztia ospatutzea baño; Aurkitu gaitezan egun orreitan Galdakanon euzkeltzale guztiok. Ordurarte ba irakurle.

Beste jaia, leenago esan dogunez, perretxiko azalkuntza-leiaketa izango da aurreko urtietan Bizkai ta Euskelerri'rik geienian be ospe andia artu daben perretxiko leiaketa. Urrillan 21'gn. ospatuko da berau, beste urteatan legez ospe andiakin, esan dogun «Peña Santa Cruz» bazkunak antolatuta, zetan esanbez, ondo gertuta izan-be.

Bazkun orrek eztau zabalkunde biarrik jai ortara notintza ikeragarriak bilduteko, aurreko eralguntzak emon dautselako aomenik naikua, baiña, ori ta guztibe, asiak dira egitarau ori zabalduten, iñoz ez-lez euzkeraz ta gazteleraz, eurak idatzita. Ori dala-ta, poztasun bat emon dauskue egitarau orrekin; geure izkuntza txukuna berorretan sartu dabelako, «Peña Santa Cruz» en iragarkietan leenengoz, beraz gure zorionak emon biarrian aurkitzen gara bazkun orri ta, batezbere bere lendakariari, euskelduna ez, euzkotarra izan arren, jakin dabelako euzkerari biar daben lotsia izaten.

* * *

Azkenengo Dagonilla'n 30'gn. Bilbo'ko abesbatz askok bertan ebestu eben, ta an izan zan Galdakano'ko Abesbatza be. Egia esateko, bildur pizkat eruan eben, abesbatza geiena barriztu barria zegolako, bañan, eurak uste eben baño obeto abestu biar izan eben, txalots pozgarri ugari entzun ebezan-ta bertaratu zan notintza andia gandik. Garaipen orrek emon dautsen poztasuna dala bide-edo, iñoz baño sutsuago dabiltz lanean.

Jarrai ba abeslari adizkideak, zeuin euzko abesti goxuan bitartez erriaren izen ona goralduten.

* * *

Iralla'n 13'gn. izan zan erri ontako urrutizkin berezia'ren, automatiku'aren askundea ta, beraz aurrerantzian aurrepide bat geiago dogu errian, aldi ontan biar-biarrekua zana bera. Zorioneko gara.

BASA-JAUN

ZESTUA

Erañegun, il onen 27'gn, emen izan ditugu irureun ezpatadantzari zar. Ia berrogei urte dirala, gazte gordin aiek Gipuzkoa'ko bazter guzietatik irtenda, talde sutsu eta benetalariak osotu zituzten. Gaur, argal edo lodi, arpegi zimur edo bete, ille zuri edo urritua, ba-dute oraindik ere lenoko zerbait: Biotz zabala, asmoa sendo ta begiak argi.

Ezpatadantzari abek, garai artako ezinbesteagatik, soñeko trakets, dantza gai zarpail, galtzairuzko ezpaten ordez iñoiz burni ugartuz edo zurezkoz joka bear izan zuten. Abek egin zutena baiña, orain ere bizi-bizi du gure erriak, eta jun dan igandean, eguerdian izan zuten mezan eta ondorengo bazkaritan, orrelako zerbait berpiztu zan Zestua'n.

PAGO-TXIKI

KILI-KILI'REN IBILLERAK

Kili-kili, gure mutiko izugarriak, kementsuak, baserritar eta dotore danak, joan dan ikastaroari azkena emon dautse. Azken ederra emon be! Zazpireun eta geiago neska-mutil eroan dauz txangorik-txango, eskursiñorik-eskursiño Euskal-Erria zear, euren jokabide zintzoa sarituaz. Eta ikastaro barriari bizikiro elduteko adorea emonaz guztiguztieri.

Barrabaskeriren bat edo beste egiten dausku, nasteren bat asmau be, bai, baiña bere «keri» guztieri gatza ta piperra ezarten ba-daki ta oso begiko da, euskaltzale neska-mutikoen artean. Ta euskal-baitan egin daroan lana arrigarrietarikoa dala esan daikegu. Millaka neska-mutikori erantzuten, ba-dau bere lana. «Kili-Kili» ingurrazkiak bereizten be ez gitxi, sariaren duin diranak aukeratzeko. Joan dan Dagonillan, txangoak dirala-ta, neke aundiak izan ditu. Baiña berak, danak gaindu dituala ikusi dogu. Amabi autobus aundi eraldu ta egokitasun guztiagaz or-zear erabiltzeak ardura aundia damotso edozeiñi.

Aurtengo sarituak 720 ume izan dira; zazpi urtetik amalaura bitartekoak. Idazkirik asko jaso dau gure mutillak, eskerrak opalduaz. Ondo mereziak!

Bere ibillerak amaituta, amabost egunen buruan, nekatuta etorran mutikoa, lertuta, iztarria urratuta. Ala ta be, pozik, ainbeste egunean euskalkanta, euskal-dantza ta euskal-mintzoa soillik entzun ebazalako.

«Baita be pozik nago —esan eustan gure txapelandik—, nere senditartea ugaritzen doalako. Orain arte, osaba abadea neban bakarrik, laguntzeko, baiña orain, lengusu-lengusiñak agertu jataz erri guztietan, kili-kilitar izateko urteak gañeztu jakezenen artean. Oneik, zabalgundea egin, jaitxoak antolatu ta bear danean ume-zain egingo dabiela itzemon dauste. Eskintza ederra, e?

«Orrez ganera, lengusu-lengusiña orrein joka-legea ikusirik, neure aititak be, emetik aurrera, lagunduko daustala esan daust. Iiiño! Onekin kontuz ibili bearko naz, urtetxoak be ba-daukozta...


«Izan dot beragaz koxkatxu bat —autortu eustan Kili-kilik—. Lengo egun batez, Larrabetzutiko idazki bat jaso eban. Auxe esaten eutsoen:


Larrabetzun 1.970'ko Dagonillaren 1'en.

Agur aitita maitea: Edurne naz. Idatziten dautsut Larrabetzu'ko Kilikilitar guztien izenean, esanaz, pozik gagozala Kili-Kili'ren osabeagaz igaro genduan arrastiagaitik.

Uste dot, Kili-Kili'ren osabea bere pozik geratu zala zeuk gertauriko azkariagaz.

Emen bialtzen dautsudan argazki au nonon aurkitu dogu, ta uste dogun lez zeurea izango dala, bialtzen dautsut Kili-kilitar guztien izenean.





Agur, Larrabetzuko Kili-Kilitarrak.

«Irakurri ebanean, aititak, ez eustan ezer esan, baiña jaurti eustan begiradeagaz, dana ulertu neban. Esan dautsudan lez, aititak ez eustan ezertxo be esan, baiña Larrabetzutarrei idatziriko «copia» bat irakurri dot ixilpean eta auxe iñotsoen:

«Agur Edurnetxu laztana: Gaur zure bitartez, Larrabetzu'ko Kili-Kilitar guztioi besarkada aundi bat bialtzen dautsuet. Zuek kili-kiliri egiten dautsoezuzan idazkien bitartez ikusi daroat, zintzo-zintzoak zariela dan-danok. Jarraitu beti orrelan. Bialdu daustazuen argazki ori, nundik nora atara dozue? Urte bi dira ori egin ebela ta nik ez neban ezagutzen. Milla esker beragaitik».

«Nik gertauriko azkariagaz pozik etorri izango zala osaba abadea? Kontuz ortxe! Egia da, osaba abadea pozik etorri zala zuekandik, baiña «txokolatadea», Kili-Kili gure mutikoaren barrabaskeria izan zan. Orreri buruzatzen etxakonik ez da! Alako naste asko sortzen dausku. Egunen baten, neuk atarako dautsodaz orri, bi belarriak, galantak daukoz-ta. Ondoren, bere burdi orretan doroan LEKUAN sartuko dot, eta ateak eta leioak itxirik, antxe euki amabost bat egunean usaiñak artzen, ia apurtxu bat onduten ba-da».

«Agur ba, nere Larrabetzutar begikuok. Biotzez eskartzen dautsuet egin daustazuen idazki maitalea. Ordaiñez, artu egizue dan-danok nere besarkadarik samurrena.

Zuena dozue Kili-Kili drogosoaren.

AITITA»

—Zer deritxozu? - esan eustan Kili Kilik.

—Kontau daustazun orregaitik, ez zala asarratu zure aitita. Usain ori artzen dot. Ta... usain ori ez da zure LEKUKOA.

—Zu be adar-soñuan?

—Noizik bein ona izaten da. Zuk xegi zeure lanari, ederretan be ederrena da-ta. Nik orain auxe jakin nai: Zenbat ume jardun dira amaitu dozuen ikastaroan?

—4.000.

—Ta asi ziñatenetik orain arte?

—5.000. Naparroa ta guzti, 8.000.

—Zelan jokatzen dira umeok?

—Zintzo ta poztasun aundiagaz.

—Zelan irakasleak? Apaizak? Gurasoak?

—Pozez ikusten gaitue. Lagundu, askok, ardura aundiz.

—Lan osoak egin dabiezanak, zenbat izan dira?

—1.020.

—Zeinbat izan dira sarituak? Zelakoak izan dira sariok?

—700 eskursiñoakaz, ta enparauak idaztiekaz.

—Aurrera ete zoaze?

—Zaparrada aundiegia izango ete dogun bildur gara.

—Eta... aurten?

—Doble ta erredoble: taparrataparra-taparratan!

ABELETXE

Oarra Kili-Kilitarrei:

Urrillan argitalduko dogun alean, agertuko doguz azkenengo eskursiñoetako argazkiak. Oso politak daukaguz. Itxaron, ba.

(4'garrenetik)

Esan dogun lez, Birigarro, euskaltzale osokoa dogu eta lenago, bere alabeari euskal-izenaz bateatu ondoren, elizako liburuan erderaz ipiñi eutsela ta egundokoak egiña zan. Laster jakingo dogu. Masi-apurbat bota dagiogun eta ikusiko dogu jaten asten dan.

—Agur, Kurutza... Itza amaitzeko astirik ezeustan emon.

—Bai, bai. «Agur» ipintea erabagi dogu: mutilla jaioten bada, «Agur»; eta neskea jaioten bada, «Eder». Zer deritxazu?

Aoa bete agiñakin laga niñuan. Baiña beuren barri ezer enekiala igarri eustanean, ipi-apa, dan-dana esan eustan.

Amama laster egiteko egunetan egoan Birigarro, esan dogun lez eta euskal-izena jartzea gura eben etxeko guztiak. Euskal-izenak jartzean, baiña, eragozpen batzuk izaten dira. Or egoan egon, maluta-peko amua.

Birigarro'k eta, elizan ipiñitako izena juzgaduan be ipintea gura eben. Juzgaduan, baiña, erderaz jarriko eutsen. Eta ori ez eben iñundik be gura. Zer egin? Zer asmau?

Bateko ta besteko itaunka jardun ondoren, Biblia'ra jo ei eben izen billa. An arkituko eben egoki-egoki bat, naiz eta euskal-izena izan ez.

Birigarrotarrei ez eutsela barriz iñok adarrik joko. Eta Biblia, Libru Santuan, an arkitu ei ebiezen gura eben beste: Agur, Eder, Ira, Ur, Arin, Apain, Aran, Ezbai, Azkenaz, eta abar eta abar.

Patxi Kulumiño'k, Birigarro'ren suiñak, Azkenaz ipintea erabagi ei eban. Bizkaitarrok, «azke naz» itxuliko gendukeana. Baiña, bakeagaitik, etxeko beste guztiak ez ei eben gura izen ori.

Ederto josta ei yakon Biblia Liburua, baiña, ez ei dauko damurik erosia.


Juzgaduan zerbait esaten badeutse, an eruango ei dau. Eta elizako zertifikatua be bai, paltarik egiten badau.

Moises, David, Salomon eta beste ainbeste izenek itzaulpenik ezpadakoe, Agur, Eder, eta beste ainbestek, ez dakarrela, beste izenak lez, Bibliatik jasorikoak diran ezkero, naiz eta guri, euskaldunoi, beste zerbait adierazoten emon.

Gure Kurutza Birigarro, eztarri-txilin onekoa dogu, eta ixillean ziarduelakoan, aren txoliñak, kalanditar asko leioetara urten bearrean ikusi ziran. Pepa Motzaillea be an ikusi neban, bere etxeko leioan, kristala apurtuta eukan zulotik burua atera ta guri entzuten. Pantxika Puñetaz, barriz, tximizta lez igaro zan gure aurretik.

Eta ontan amaitu zan gure autua, beste bat artean, Jaugoikoak gura ba'dau.

ARKOTXA'TAR J. A.




AGUR

ILLEROKOA
6 ZENBAKIA

1970 - URRILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA



AGUR GOTZON!

Ots, ots, bizion oiñak, millaka oiñak, lur gañean; «Zabale» zure baserri, zure jaiotetxe inguruko bideetatik zear, ots, ots... zure gorputza aurretik, zure lagun gazte kutunenak anderu diralarik, zure gogoa danean, gure barruan sartu nairik, lorak, etxekoak, gu danok atzetik, maite izan zaitugunok oñazeak biotzak apurturik. Iñoiz ez dogu ikusi olako maite miñik, danok ixilik.

Agur Gotzon, agur betiko! Pozik egon bear eidogu, esatea erreza, izatea gatxa, ziñismenak lagundu bearko!

Agur Gotzon, zure ta gure aldizkarian ez dozu editorial geiago idatziko, editorial mamintsuak! Zure izkuntz jator ta aberatsaren utsunea, zelan bete? Gaurko au neuk eskatu dot, iztegi txiroaren ordez, biotza ipiñi bearko; zelan bete bestela zure utsune ori? Zuk igerri ez arren eskuak alkar loturik egin zendun azken arnasa, eskuetatik oratu ta ezer ezin egin. Jainkoak beretzat nai, gure jakituri apurra, salgai!

Esku orreik bateatu ebezan iru illebete dirala nere umetxo biak: Sabin eta Joseba Andoni; Izen onek bazuten zugaz zer ikusirik.

Abadea ziñan eta gizona, erri kutsuzko abadea, egizko Gizon Egin Zanaren jarraitzallea. Kristoren irudia zendun elburuan baña erria, Euskal-Erria bidezko, Sabin eta Joseba Andoni lakoak maite! Olako ume ta gizonen jatortasunak, zintzotasunak, egizaletasunak irabazi eben zure biotza. Aren bidea aukeratu zendun zeutzat eta aukeratze orrek buru auzte bat baño geiago ekarri. Bide arantzadun orretan urratu zan zure gorputza baten baño sarriago. Aukeratze orrek lagun bat baño geiago aldendu, baña zu egizale ziñan eta egian oiñarritua.

Euskal-Erri osoan nork ezeban ezagutzen Mañuko abadea? Iñori ikusi eziñik ez, iñori gorrotorik ez, ez iñork zuri ere!

Zure oe ganean jesarrita nengoan: «oraingo editoriala Maitasunaren burruka» gaitzat arturik egingo dot, buruan egosita daukat baña ez naiz idazten asteko gauza; eta ez dozu egingo... edo bai bear bada zerutik guri lagunduz...

Areriorik ez; lagunak, gazte guztiak. Zer ikusi ta zer entzun ete dabe Mañuko orma areik? Abade ziñan, orregaitik eguneroko ekiñean bete zendun zuk, Kristok Berak esana: «Zoriontsuak beartsuak», «Zoriontsuak juztiziatik iges dagianak», «Zoriontsuak gose ta egarri diranak». Abade testiguntza ori emoteko zenbat bider izan ziñan arriskoan?

Zure atean joten ebenak «emen nator» esanaz, an aurkitzen eben estalpea, nor zanik itandu barik, bear eben ta zuk emon.

Zenbat ete dira mundu onetako bideetan zear zure eriotzaren oñazea daroanak? Danak maite zenduzan naiz zure iritzia bakarra izan. Maitasun batasuna zan zure betiko itza. Zuk idatzi zendun Uriona'tar Balendinen bizitza, maitekor egin be. Zure laguntzalletzat aukeratu gaituzuneen izenak ikusirik, ez ete da emetik batasuna etorriko? esan zeustan. Zure Eleizkisunean egiña zegon. Olan jarrai bedi!

Maitasunezko batasuna bear dogu erritar guztiok, esaten zeustan; «alegindu gaitezan egiaren alde iñor mindu barik»; «Bidea erabaki dogu, jokatu daigun gogor baña ez mingor...» eta zenbat olako!

Gotzon galdu zaitugu! Zure abade lagunak, jatorrena. Mota guztietako ekintzalleak, estalperik aundiena. Euskereak, bizkaierazko idazlerik jatorrena. Beartsuak, txiroak, Euskal-Erri osoan zakabanatuta bizi diran askok, lagunik onena.

Eta Bermeotarrak? Areik bai, areik galdu dabela... zure Eleizkizunean ikusi zan zu ziñala erri aren biotza, alaia, emonkorra, langillea, dana. Joseba Iñaki, Anton, enoa izenik emoten, zertarako? Bermeo esan eta



(Argazkiak: Clic)

kito. Urdulizen ama bat, Mañun beste bat... anai arrebak? Batzuk odolekoak, Bermeo osoa biotzekoa.

Kili-Kilik lengusu bat galdu dau. Guk, «Agurrekuok», zer esan? Baña ziur nago, andik goitik lagunduko dauskuzu; ez guri bakarrik, euskereari, euskeraz egiten daben guztieri, danori, batasunari, batzuri ta besteari, danok laister bat izan gaitezan.

Bakio'ra bidean, Landabarrene inguruan, nere seme Andertxuk esango dau Mañu'ra begira; «An goian osaba Gotzon bizi da». Zelan oraiñ baña ezetz esan? Ala... ez ete da egia oraiñ eta betiko an bizi zaranik? Zure lagunentzat bai beintzat. Amaitzera noa, zelan? Zuk aiñ maite izan zendun «maixuari» egindako abestiagaz... Geroarte!

Agur Gotzon maitea
baña egunen batean
Agur sekulako
alkar ikusteko
Il zara zu betiko
Jaunari eskatzen diot
ludi ontarako
Zeruan artzeko.

IDAZLEEI DEIA: Ainbeste lagunen eskabideari jarraituz, AGUR onen ardurapean, «GARITAONANDIA'TAR GOTZON» idazketa saria eratzera goaz.

Datorren zenbakian, J. L., sariketa onen zeaztasunak eta betebearrak agertuko doguz.

70/71 IKASTAROA



Asi jaku ikastaro barria, euskal girokoa alan be. Zar eta gazte, or dabiltz alegiñetan, asi, jausi, jaiki ta barriro aurrera doazala. Asmoak iñoiz indarrak baiño indartsuagoak izan, ala ta be, ekin ta ekin, ba-doaz goruntz jakingura maitagarrian. Euskerazaleak antolatu dabezan illuntzietakoetik asi ta gure aurtxoak, urtero geiagotzen dirala, Euskalerri osoan osotzen dabezenetatik zear, ba-dago zaletasunik nun aukeratu neurtu ezin arte.

Ta aurtxoak doguzala biotzean, or joan gara Begoñazpi'n zabaldu dan ikastola barrira. Emen Altuna'tar Libe lekaime jakintsuaren zuzentzapean eta D. Luis abade jaunaren laguntzagaz, iru andereño eta irurogetamar neskamutil, iru urtetik zaspira artekoak, aurkitu doguz lanean.

Iru taldetan daroe ikastaroa: Iru urtekoak Amapekoan; lau eta bost urtekoak Aurtzarokoan; lenengo eta bigarren mallako ikastaroan sei urtetik gorakoak. Goizean, 9'terdietan sartu ta amabi terdiak arte. Bazkal ostean, 3'terdietatik bosteterdiak arte. Bitarteetan jolasak baratz eder, argi ta aizetsuan.

Amapeko aurrak, jolas utsean ia beti, gauzen zera ta zergaitia ikasten asi dira. Jolas ugari barruan eta baratzean, ez baiña edozelakoak, umeen irudimena esnatuko dabezenak, gaurkotasun aundienagaz. Orretarako esku gai beriziak eta andereñoen ikasketa barriak laster igarri daikeguz. Aurtzarokoak gero, irakurten eta idazten asiak dagoz; astiro, erdi jolasean, abesti, esku lan, ebaketa, marrazki, ta argizai antolatze bidez gaurko matematiken asieran sartzen dira. Garrantzi aundikoa da sasoi onetako aurtxoen ulermena bide egokitik esnatzea. Onezkero nausiegana eldu gara, gaurko nausiegana, sei-zaspi urtekoegaz gagoz orain. Or datoz ikasketa mugartuagoan aurrera: idatz-bidea, zenbakitza, irakur-doiñuak eta geroko oiñarri izango diran jakinbearrak ikasten.

Gaur danori; biar, aurrak euskalduntzen eta azten doazala, goragoko ikasketetan zabalduko dira, aurrera beti. Orra or gerorako asmoak eta betebearrak, ta lortuko diran itxaropenean gertatzen asiak: irugarren ta laugarren mallara eldu eta igarotzean, batxillerra be izango dabe, ta gaurko aurrak mutil-koskor eta neskatil lirain biurtzen doazan neurrian, ikasketak be gorago joango dira. Beti baiña, aurtxo txiki barriak sartzen datozala ta geituaz beti, ikastetxe aundi onek ler egin arte. Aurkituko dira barriak, orretarako baiña ba-dago epea milla bat ikasle aurtu daikez gaurko etxe onek ikastaroa goratuaz doala. Ara ba, Begoñazpi, gaur ta biar euskereari oiñarri sendoak jartzen ibilliko dana, ori ta oitura garbi, zintzo, geure ta Jaungoikozkoak indartuz.







Ta gaur ikertu dogun ikastola onek damoskun poz ta itxaropena, or gure ibarretako uri ta auzoetan beste orrenbeste jazoten dala igarrita, Jaunari eskerka amaitzen dogu.

BEIZTEGI

ERROMA'KO SAN PEDRO ELIZA

Paulo VI Aita Santuak Avilako Teresa donea Eliz-Irakasle egin dauala-ta ainbat ibillaldi egin dira Erromara joandako irallan. Ainbat erromaratu ziran gertaera eder au ikusteko gogoz. Euskalerritik be asko izan ziran, bai Bilbotik, bai Gazteiztik, bai Donostiatik eta bai Iruñatik, eta bai Eibartik. Toki ederrak ikusi genduzan bai aruntz eta bai onuntz: Lourdes, Marsella-Cannes-Niza-Monako-Turin-Milan-Venezia-San Marino-Loretto-Asis-Napoles-Vesubio-Pompeya-Sorrento-Florencia-Pisa-Genova. Erroma danen ganetik, bere kondairagaitik eta dituan ainbat gauza ikusgarrigaitik. Baimen berezia genduan Eibartik joan giñanok Vatikanoko baratzak eta Pedro Apostoluaren illobea ikusteko. Irallaren 25 goiz osoa egin genduan baratzak ikusten, euskeldun jesuita bat zuzendari genduala ta arratsaldean Vatikanoko lurpeko toki bereziak ikusi genduazan beste jesuita euskeldun bat zuzendari genduala. San Pedro Apostoluaren illobia ikustean alako dardara gozoa sentitu genduan biotz-barruan. Ainbat gauza eder! Ainbat gauza samur!

Irallak 27. Bete-bete eginda San Pedro eliza. Milla asko. Kardenalak lenengo mallan, Obispo-mordoa ondoren, Ordenetako Nagusiak, diplomatikoak; toki berezia genduan karmeldarrak. Eibartik bertaratuak be aldara-nagusitik ur egozan; toki onean; erdi-erdian. Paulo VI, Avilako Obispo jauna ta Miguel Angel Batiz, Karmeldarren Nagusia, Markiñako semea, aldaran meza esaten. Ixiltasuna... abesti samurgoxoak...

«Daukagun eskubideaz eta bere santutasuna ta jakituri sakona gogoan doguzala, Avilako Teresa donea, Karmeldarren Ama, Eliz-Irakasle dala diñogu».

Txalo zoliak entzun ziran eliz eder-zabalean Aita Santuaren itzok aditzean. Malko lodiak be ixuri ziran ainbat begietatik. Itzaldi mamitsua egin eban Aita Santuak italieraz eta españeraz Teresa deunaren bizitza ta egite arrigarriak aopatuz eta goralduz.

Erroman egindako 6 egunetan ainbat gauza ta toki eder ikusi genduzan. «AGUR» ira kurleentzat jakingarri izango dala-ta Vatikanoko San Pedro elizataz ainbat barri batu nituan-Ona emen batzuk:

Antxiña baten aundiena zan eta gaur be aundienetarikoa da. Ona labur-labur jakingarri batzuk; 1.507'garren urtean emon jakon asiera Julio II Aita Santu zala. 1.623'garrenean amaitu zan. Eun milla artzen dauz; 200 metro dauz luzeran; 300 leio ta 30 aldara; 137 Aita Santu dagoz lurperatuta bertan. Juan XXIII azkenekoa. Jendetza aundia joan oi da gaur be bere illobia ikustera; 250 milloa franko kosta zan. Gaur zenbat kostako ete litzake?

Berreun eta geiago gizon-andrak dauke bere ardura. Gaurko gitxitu egin dira langilleok. Eliz-aurrean enparantza zabal bat dago arkupe ederrakaz; 300 santuen irudiak ikusten dira bertan; 25 eta erdi metro luzeran dauzan apaingarri (obelisco) dago; apaingarri au Ejitotik ekarria da ta, 5.000 urte ei daukoz. Kaligula Kaiserrak eroan eban Jesukristo ilda 30 urte barru. Itzok ipiñi ebezan urretan kristauak: «Cristus vivit, Cristus vincit, Cristus regnat». Aurrerago Neronen jolaseta egoan toki ontan. Ainbatek ixuri eben odola Kristogaitik. Iru eskillara dagoz plaza ontatik elizara ta eskillaren alde bitan Pedro ta Pauloren irudi aundi bi agiri dira.

Bost atetatik sartzen da Vatikanoko plazara: Ate Santua izena dau azkenekoak. Urte Santuan bakarrik zabaltzen da ate au.

Metro biko letrak agiri dira elizan orma-goian: Tu es Petrus et super hanc petram aedificabo Ecclesiam meam. Aitz zara zu ta aitz onen gañean egingo dot neure Eliza.

Gaur egunean be indar aundia dau Vatikanok. Millak eta millak joan oi dira mundu zabaletik orain lau gizaldi jaso zan eliz aundi-ederra ikustera. Bere aunditasuna Kristoren Elizaren irudi da ta alperrik ibilliko dira munduko indar eta almen guztiak; egundo ezin lurperatu al'izango dabe, Kristo beragaz baitago.

GOIRIA

«EUSKAL SHOW», BARCELONA'N

Oyartzun'go enparantzean gagoz. Oraintxe bertan iritxi dira gure abeslari yayoak. Nundik datoz? Barcelona'tik! Euren arpegietara begiratzea aski da oso pozik datozela igartzeko. Eta bat-batean, zuzendari dan Oñatibia'tar Yon'engana urbildu gara.

—Kaixo, Yon. Nola ibilli zaree Barcelona aldean?

—Ezin obeto ain garrantzi aundikoa izan dan ibillaldi onetan; ezin obeto ibilli gara!

—Zer dala-ta joan zaree Barcelona'ra?

—Urtero ango Udalak eratzen daben abestaldeen jayaldira deituak izan giñalako.

—Zenbat egun igaro dituzue ango uri aundi aretan?

—Barcelona'n bertan lau egun, eta bidean, joan-etorrian, beste bi; guztira sei egun igaro ditugu etxetik kanpora.

—Abesti sayo asko egin al dozuez?

—Bai. Lenengo egunean, iru ikas-sayo egin bear izan genduzan gañerako abesbatzekin batera, danok alkar-artzeko bearrezkoa bai zan.

—Bigarren egunean?

—Arratsaldetik, alkar-arteko beste sayo bat, eta apalondoan, Barcelona'ko enparantz bitan, euskal abesti sayo bereziak emon genduzan «LARTAUN» taldekoak.

—Ongi artu al zinduezan katalanak?

—Bai, orixe! Enparantz bietan entzule mordoak bildu ziran eta gogotsu txalotu euskuezan gure abestiak.

—Jayaldi Nagusia igandean izan zenduen, ezta?

—Bai. Goizetik, meza abestua Vallvidrera izeneko baso itzaltsuan. Ikusgarria, benetan! Eta arratsaldetik, jayaldi nagusia Palacio Nacional aundian.

—Zenbat abeslari bildu ziñeen?

—Ogei abestaldeetako zazpireun abeslari guztira. Arrigarrizkoa izan zan danon arteko abesti sayoa.

—Ze eratako abestiak zenduezan egitarauan?

—Danetikoak: Katalanak, elizkoyak, Frantses bat, Mallorka'koa, Asturia'rra, Leon'go bat, Gallegoa eta abar.

—Eta euskaldunik ez?

—Bai, jakiña! Aita Donosti'k antolatutako «Buba Niñaño», *seaska abestia.*

—Jayaldi ortan ez al zenduen beste euskal abestirik entzun arazi?

—Ara. Gu, «Lartaun» go abeslariak Barcelona'ko jayaldi ortan lenengo aldiz agertzen giñalako, guk bakarrik abesteko aukerea emon euskuen.

—Eta zer abestu zenduen?

—Olaizola'ren «Aurtxoa Seaskan» *(bakarrikoa Anttoni Raymond'ek(, eta nere* «Agur Zuberoa».

—Zuen ekiñaldia atsegin izan ete jakoen?

—Bai, eta oso ziur nago orretzaz. Alde batetik, gañerako abeslari, zuzendari ta antolatzalleak gogotik txalotu ginduezelako. Eta bestetik, datorren urtean egingo dan abestaldeen billerarako eskeintza egin dauskuelako.

—Ederki dago ori! Eta Barcelona'ko laugarren egunean, zer?

—Azkeneko egun orretan, «EUSKAL SHOW» emon gendun. Maristarrak daben antzoki barri, zabal eta bikañean.

—Nolatan gogoratu jatzuen «Euskal Show»a» an emotea?

—Bein Barcelona'ra joan bearra izan gendun ezkero, oso egoki iruditu jakun gure euskal ikuskizun ori ango euskaldunei ta katalanei erakustea. Ori izan zan gure asmoa.

—Garaipen aundia lortuko zenduela ziur nago.

—Bai, eta alaxe izan zan. Jakin besterik ez dozu, alegia, «Ara nun diran» *(Pepi Otamendi bakarrik(eta* «Agur Zuberoa» *birritan abestu bearrak izan genduzela. Eta orrela, txalo beroen artean jardun giñan ordu biko gure sayo aretan.*

—Ondoren ona, beraz, Yon?

—Onen onena! Barriro «Euskal Show» ikusteko zaletasunez beterik gelditu zirala esan euskuen euskaldunak bezela, katalanak be.

—Beraz...

—Datorren urtean, barriro Barcelona'ra eroan bearra izango dogula gure ikuskizuna.

—Ongi portatu ziran, noski, taldeko neskamutil guztiak?

—Oso ederki! Lana gogotik egin bearra izan eben, baña ekiñaldi bakoitzean euren gogo ona ta almen osoa jarri ebezan. Oso pozik geldituta nintzan gure abeslari danekin. Eta ala berean, Pasai'ko «Alkartasuna»ko dantzariekin be. Dantzari trebe orreik egunetik egunera obetzen ari dirala ederki nabari da.

—Eta besterik, Yon?

—Egitan, gure izketaldi au ez nuke amaitu nai zerbait geyago adierazi gabe.

—Zer?

—Ara. Guk Barcelona'n eman degun «EUSKAL SHOW»ren erakusketea, Cataluña'ko «Dotación de Arte Castellblanch» eri esker izan dala; alegia, etxe ospetsu onek eskeñi zigun laguntzagatik.

—Pozgarria, benetan, barri ori!

—Bai, Castellblanch etxe ori asko sayatzen da abeslari ta ertilariei laguntzen. Eta ain zuzen, eralguntza ori bera izan zan, aurtengo udan, Tolosa'n egin zan abesbatzen leyaketarako sari ugariak emon ebazana.

—Asko poztutzen naiz guzti ori jakitearekin. Cataluña'ko etxe orrek Euskalerri'koei ikasbiderik onena emoten ari dala deritzait.


ERRITAR BATEK

EUSKAL - ERRITIK MUNDURA BEGIRA

Bilbo ta bere etorkizuna... zelakoa ete? Erri miñak ala bestelako indarrak bultzatuak ekingo ete dautse Gran Bilbao Komisioko bost arduradunak? Ispizua, Fernandez Retana, Aguirre, Goyarrola ta Lastras jaunak dira gure Uri buruaren edertasuna lortuko dan ala ezaren azken itzaren jaube. Betiko aterako ete dira Bilbotik ain kaltegarri diran lurrunak?

* * *

Gernika'ko Arbola gaixorik ei dago. Gaixorik txarrena erri miña izaten da. Ez ete da erri miña gure zugatzaren gaixoa? bere bizitza guztian anaiak burrukan ikustea ez ete da eun ta amar urte onetako gaixoa? Bere seme-alabak besarkaturik ikustea izango da osakirik onena. Alan izan bedi.



Arbola onek ainbat adar bialdu ditu munduan zear. Irakurten dogunez bere landarak ugari dira Ego-Amerikako errietan. Laterri areik ere gaur egoera larrian bizi dira. Ez ete dago iñun bakerik?

* * *

Chilen, Allende jaunak, irabazi ditu auteskundeak; demokratziaren bidez eldu da agintza aulkira. Asmoak onak dituala esan leike ta erriaren askatasunik ez dabela lurperatuko. Adibide ona izango da gutzat Chileko experientzi barri ori.

* * *

Nobel sari ospetsua Alexander Solzhenitsyn errusiatar idazleak irabazi dau. Ikusten danez Errusiako agintari arentzat ez da aukeratze ori atsegin izan. Mundu guztian jakin da Laterri aretako askatasunik eza ta idazle orrek bizkar ganean izan dituan zigorren barri. Gogorkeriak, naiz ezkerreko naiz eskumakoa izan, bardiñak dira.

* * *

Nasser, Egipto'ko lendakaria il da. Arabe'arrak gizonik sendoena galdu dabe. Arabearren arteko bardintasunik eza, ikeragarrizkoa da. Laterri batzuk aberatsak izan arren, mixeri-gorrian daukez erritarrak. Palestinotarren burruka aspaldian amaitua izan bear leuke, arabe'tar agintariak nai izan balebe. Judutarrari gorrotoa zabalduaz ez da erriaren gosea asetzen, urte batzuetan estaldu arren. Ez da ori kontua, lurraren aberastasunak obeto banatzea baño.

* * *

Pompidou, Frantziko lendakaria, ipar euskaldunen estaduko lendakaria, Rusia'ra joan da. Ikusten danez onartua izan da, ideoloji guztien ganetik dirua dagola dirudi, ta uztaietan lez ertzak alkarren ondoan agertzen dira beti.

* * *

Bolivian, Torres jeneralak, iraultza bidez, ezkertiar gobernua jarri dau. Noizik bein yanki'ren imperialismoak; beste batzuetan komunistenak —Ezker-eskumatik demokratzia beti arrizkoan— Zer ikusi bearko ete dogu?

BEGI-BI

Pozak eta kezkak

Euskera batua edo «euskeranto» ren aldekoak zeozer eskeiñi ei dautse euskerari. Besteok ezer ez. Zelan sortu ete zan «Anaitasuna» aldizkaria? Guk dakigunez, Aita Imanol Berriatua, Andoni Esparza jauna ta Josu Arenaza jauna, izan ziran asmatu ta sortu ebenak; H zaleak ete dira azken jaun bi oneik?

* * *

Sortzea da gauza bat eta eutsi al izatea beste bat. Orretzaz be zeozer esango leukie bizkar gañean zorrak artu zituzten beste jaun H bakoak.

* * *

Euskeraren batasuna? Gauza erreza! Euskaltzaindiaren buruak illen izenak eskeñi dauskuz: Aprilla, Martxoa, Abuztua... eta abar! sekula olako buru auzterik! Joan dan mende osoan, Bermeo inguruan egiña zegon «batu» ori. Orain Bizkaiko txorierrin esaten dala ta ermanua, primua, caballua eta abar. Sartuko dira Euskaltzaindiaren (?) iztegian... ori dala uste dogu, Aita Villasanteren «Kriterio biolojikoa». Oar: Parkatu, Hermanua (gu H bakuok!)

* * *

«Euskerantoz»: «Baina permiti biezadate autore biok... biba zuek eta zuen liburua»! Eta biba la Marimorena, pronto hablauko dogu todok puebloren euskera (lelengo zatia aldizkari batetik artua).

* * *

24 euskaltzain osoak; 3 oorezkoak; 150 inguru laguntzalleak, Biltzen diranak? Ogei inguru; Donostian, ostiralez, bertakoak, abadeak, lau liberalekoak edo «diberauak» izan bear (eta ez dira bardin).

Iritzirik eskatu? Bai zera! Auteskundea komeni danean antolatu; botoa lagunak eroateko eskubidea billatu. Komeni ez bada «alfabetatze kanpainarako izendatu doguz» esan eta norberaren taldekoak sartu, ez dok idazkari jauna? Gero Euskaltzaindiak izan bear ei dau «dema» dun... zelako «demaduna»?

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Salneurria, 5 pt. alea

Dep. Legal: BI. 879-1966

BURRUKARIK EZ

Orain egundo lez, Euskalerria aurrera eruateko, lan-egiten dala esan oi dogu. Egia da, ikastolek, aldizkariek, gaztediek jaso dabe euskel-giroa; elpururik goyenak eskuratzekoan bai liran ikusten doguz.

Atzokoari begirakune errez bat, ta pozaren pozez eta arropuztuta gagoz. Benetan itzelak gara, euskerea, ametik gerotxuagokoan, gaizkatu al-izango dogula... Onenak gareala uste dogu, guzti ondo egin-ala egiten dogula. Agoa berotuta, gogo baikorrak doguzala, pentzuda artu geinke oraingo bideari jarraitzeko. Bayetz, zeozertxu egin dogu: gutxien batzuk iratzartu, irakatsi edo irakurri-azo... Baña, enparaua ikuskatu bear-dogu.

Zalantza bariko txartxarra, orañarte egiñiko gauza batzuk obetu-eziñak dirala uste-izatea da. Eziñot ikastola edo aldizkarien lepotik, orretan danok batera gagozalako: oraindik asi be iya eztogula egin, asko ta asko lantzeko daukogu-ta. Esan bearrekoa da, ordea, onura bat lortzekotan ain txarto zelan ibilten garean; zenbat eta zenbat irain irri ta gorroto egiten doguzan euskerearen aldeko jardunetan. Biar etziko euskeldunak urte oneitako jaditxirikoa epaitzean arrituko dira. Guk on bat egiteko, sarritan ainbat txar egiten dogula ikusiaz.

Gure okerrak eta erruak alkarri aitortu bearrezkoak jakuz: taldekeriaren menpean gagoz. Egun oneitan, euskerea, batak bestiari miña ta kaltea egiñ eta eragiteko darabilgu; idaztean, batez be, geyenetan beste euskeltzaleak gogoan dodaz gura-txarrez. Itzak azkon bigurtuta, jaurtitzen dautseguz gure gogoketearen «arerioei», guk dagigun legez, ez asmatzen eta ez oldozten ausartzen diralako. Gora Euskalerria'ka ta gora euskerea'ka ibiltzean, gora geu ta geutarrak eta «bera» bestiak diñogu gure kolkorako, ta askotan, nairik ala ez nairik, estalpe-bage esan be bai. Griña zantarrek menperatu nabe: euskerearen eta erriaren alde diñardugula, egiaren egitan, gure taldearen alde bakarrik eragoten dakigu; gutarrak dirauskue onenak garala, ta guk ziñetsi. Gure egite ta esate guztietan gu gara, zuzen, jakitun, errikoi, ta beste taldekoak ostera, gaizto, oker, jakinbage ta jauntxoek; bai arroputzak!

Nebarrebak nebarreben aurka, semiak gurasoen aurka. Burrukak andra-gizonei abiatu-azo dautsela azalduko dausku batonbatek; nik ordea, maitasunik-eza ta itzalik-eza, iñoiz ta iñun be eztala egokia edo aurreratzallea ziñesten dot. Indarkeri, nagusikeri, berekoikeri gorri-gorria: emen ugari emondako igaliak onexeik dira.

Geroko Euskalerriaren irudia, ete-da, askatasun-ezarenpean? Orain orrelan ibilten diran orreik nagusiak izan gura-dabe-ta... Eredu negargarria umientzat, «bakar» izketearen gurtzallien itz samin orreik. Ederto ibilliko gara danok «etorkizun» orretan, gitxik esana legea egiña, antxiñatik billaturiko askatasuna bein eta barriro ukatuta.

Askok adierazo dabenez, Euskalerriak nortasuna ta berezitasuna dauz; euskeldunek ibilkera ta egikera bereak dabez. Edonoiz, euskeldunek, erdeldunen aldean, beste urtera bat erabagiko ei-dabe. Eta askatasuna be, maite-maite ei-dabe. Agiri jakunez, baña, euskeldunek erdeldundu gara ibilkerearen arazoan ta ez izkuntzaren arloan bakarrik. Gure arazo orreitan ibilten gara ego-ameriketako futboletan legez (euskerea beintzat arazo aztunago ta garrantzitsuago dalakoan gagoz). Edo batonbatek ori erderazko irañak euskeraganatuaz agertzen dala uste izan ete-dau, ta orregaz askatasuna «barriztuten» dogula...?

Batasuna andik, batasuna ametik, guri entzuteagaz Gorbei-aldeko akerrak be aspertu jakuz, ta «batasun» orren usañik be eztogu susmatzen; guztiok zatiaskotuta, mormor, albokoari aditu gura barik. Bai tamalgarria oraingo euskeldunek emondako itza, «batasuna», beteten ez jakitea. Jakiña, batzuen «batasunak», diadarka ta ostikoz sortua, eguneroko zerbait gogoratzen dausku. Egoera au guk geuk, euskeldunok, erakarri dogu-ta, guk geuk ezereztu bear dogu. Bare-bare, bear-dan eran, nasai ta entzulearentzako itzalagaz aurkezten ba'doguz gure ustiak, benetako andra-gizonak, euskeldun osoak, esatez eta egitez, izateko bideari asi gintzazake. Asi gaitezan oldozten bere ustea egokiena dala bakotxak ziñezten dabela, ta gogaidetu naiezkero solaskia azaldu bearra dala, sentzunez eta eruapenagaz. Alan-da-be, norbaitek aintzakotzat artzen ezpa'dausku guk erazaguturikoa (errezena da-ta), ez otu zuri euskeldun txarra, tentela edo gaiztoa danik: beste ustekoa da, ta kitu. Ondorengoan, len izan dogun entzuleak guri be bere asmoak jakin-azo gura ba'dauskuz, adituko dautsaguz sentzun eta eruapen aundiakaz, berearen ordañez. Era oneik, bidez diñot, oi dan legezkoak dira mugaren beste aldietan, ta iya aurkitu-eziñak ostera gure aldean. Barrizaliek eta erbestezaliek, ain zuzen be, egikera orreik etxeratu leikiezan, beste alperriko batzuen ordez.

Nire irakurle, ia gure aldetik zuzentzen doguzan era txar guzti orreik; ia ingurukoei ta «aurrekoei» batez be, gure itzala erakusten dautsegun. Bestiek, alkarregaz onetan ibilten ezpa'dakie, edo jakin gura ezpa'dabe, danen aurrean aziera txarrekoak agertuko dira, ta guri ardura ez. Ikusi dagigun, Euskalerri bat egiterakoan, guztiok gorriz edo orlegiz margotuaz eztogula burutuko. Obeto, Euskalerri ALKARTU baten alde ekin: BAT da erria, baña ALKARTZEA bear dogu. Ez umekeririk. Laga dagiguzan gure arteko burrukak, autu gaitezan ba, biotzetik.

Ni enator batera askokin, baña itzal aundia dot orreintzat be, Askatasuna geuretzeko lenengoz askatasunean ibilten jakin bear-dogu.

ARRIORTUA'TAR ANDER'K

ZUMETXAGA

San Migelak. Pozgarriak ala tristeak ete dira? Amaika gaztek, bein San Migelak ezkero, ikastera joan bear izaten dabe. Egun orretako karamelua gozartu ondoren, erropa ta liburu zorrua artu ta bizkortu egin bear izaten zan. Gaur egunean be alan izango da kontizu.

Tristia al da ori? Ez deritxat. Gure erriaren bizia seme beargin eta jakitunen billa dabil. Mutil nai neskatil gazteak jakituria bear dau bururako ta ogiaren janaria gorputzerako. Berezko eskariak dira.

Euskal-erria be gazte baten antzera gose da. Berez. Ta garraziz deika dago. Nori? Zuei neska ta mutil gazteoi. Alderdi guztietatik garrazika datorren deia, ez al-dozue entzuten?

Au pozgarria jatsu gazte. Zu bear zaitu gure erriak. Zure argia, zure indarra, zure lana eskatzen dautsuz, bera argitzeko ta geroago ta ederrago izan dedin. Ta au guzti au, bidez, zuzenduta.

San Migelak, lanaren aldetik, zuretzat ez dira tristeak izango. Buru ta biotz osoosoan, erriak daukan egarri ori asetuko dautson iturburuan sartuko zara.

Jakituriz betetu arte, ekin eta ekin. Baiña ez aztu nor zaran. Zure anai-arrebak, lengoak eta oraingoak ta gero, etorriko direnak, ementxe, biziko dira. Gure asabak euren jakituri ta maitasun bidez edertuten alegindurikо euskal-errian. Zuk geiago edertuko dozu, zeure erria nor dan obeto ezagutuz.

Guk ba-dogu berbeta bat. Geure geurea. Jakituriz beteta dago berau. Ta origaitik zailla dala esan oi dabe. Jakintsua ba-da. Ori egia da. Baiña gatxa ez da. Eztia dariola edonundik dirudi. Ta, errez-errez, ikasten dabe gure mendi liraiñetako umeak.

Zu lako gazte gartsu batek ezin ikasi al-izango ete dau geiago ta geiago...? Baiña... zertarako... Geure erriaren nortasun guztia munduari agertzeko. Baita geure bizia be agertu egin bear dogu.

Gu poesi edo olerki bat gara. Gu ez gara alan. Guk geure mendi, itxaso ta ibarrak ditugu. Orlegiak, atsegiñak. Ta ori-gaitik doa gure jendea Bizkai ta Gipuzkoako itxas ertz bardingabeetara...

Guk geure izakera dogu. Ixilla ta zentzunduna angoak esaten dabenez. Emengoen egiteak astunak izan oi dira. Gizontasunez orniduta dagoz, baiña arrokerizko zaratarik bage.

Lur onetako seme-alaben jakintza ori da. Ez da azalkeria, mamiña baiño.

San Migel ondorengo bizitzaren gatza orixe izan bear dau. Beraz, San Migel eguna, egundo ez da izango tristea.

Il onen ogetabederatzian San Migelen izan nintzan. Antxe ikusi neban euskal-gizategi eder bat. Zoragarria. Lengoak zelakoak ziran begira egon nintzan ta oraingoak zelakoak ziran be bai.

Amaika ta erdietan kanpaiak Mezatara dei egin euskun. Berbeta ederra entzun genduan, baiña, an, lengoak ikusi nituan. San Migelek esan gura dauskuna barik, ez gara urriñera elduko, lurra mizketan geldituko gara. Ta zer... Lurra bakarrik illuna da. Geiago bear dogu. Sinismen bat bear dogu geure bizia maitatzeko. Betirako.

Oraingo gaztedi ederra zelaian ikusi neban. Bai, ori bai, gizontsu. Angoak esango dabe, euskalduna gizontsua dala. Arrituta nengoan ta amets bat asmetan neban geure gaztediaren begietan...

Aurrera doaz ona ikusten, ederra maitatzen. Erri soiñuz dantzatu ziran ezpata dantzariak. Ta ura ikuspegia! Aren alaitasunari begira eundezka lagunak arnas-otsik entzun bage San Migelen aurrean.

Ondoren, zelaia bete lagun dantzari «jota ta arin-arin». Ta kanpoetatik etorririko lagunak negarrez. Baiña zeri Maiñazi...? Zelaiko ederrari... gaztediaren egiari... iñoz ez eben ikusi, an bestaldean, olakorik.

Argia illuna urratzen doa. Ta betor, bizkor, egiaren dirdaia.

Bazkal osteko tanborradak ez eban izan bardiñik. Musika ta olerkiz jantzi zan zelaia. Lagunen sentimendu ederrak ibilian ebiltzezan zelaian zear. Abestia, bakea, tanborrak, doñuz eta ertiz, atan bere, bakoitzak iruli zituan erri biziaren omenean.

Esan nai guztia, legunak eta egia, San Migel ta Zumetxaga, bere zaindaripeko erria, abestiak eta eguzkia, guztiak alkartu ziran egun urdin-urdin batean.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

LENGO LEPOTIK BURUA...

Alan esan oi dogu euskaldunak iñork lengo berbera izateari jarraitzen ba'dautso, bizitzako goraberak edo ezbear ta aldi onak arren. Ta benetan esan geinke gizadiak aurrerapen ta jakintza-arloetan oso bestelakotu arren, bere izakeraren muiñean lengoari jarraitzen dautsola. Andrazko zein gizonezko, bardin-bardin dituzu urteetan zear. Sortu zan egunean baizen gizon da gizona. Ta agertu egunean baizen emakume emakumea.

Baiña, itxi dagiogun arlo orreri ta lotu gakiozan gure egunetan nabarmengarriagoa dan beste bateri. Gaurkoz, idazlan onetan gizonezkoak alde batera itxita so dagiegun andreai. Euren andre-izatean bardin-bardin diraute. Moda-zaleak, barri-zaleak, itxura-zaleak eta uskeri-zaleak. Parkatu dagistela olan ez diran emakume zintzo-sendoak. Olakoak ere, egia esateko, lengo lepotik burua: zintzo, maratz eta benetako. Neuk, baiña, bestelakoak ditut orain gogoan: lengo lepotik bururik ez dabenak, alegia.

Askotan entzun izan dogu euskaltzaleen artean tamalgarria dala andrak erderaz itz egiteko daben zaletasuna. Geroko gizonak, oraingo bere umeak, erdaldun edo badaezpadako euskaldunak izango diralako bildurrez kezkatsu ibilli gara zenbaitzuk. Bateonbatek idatzi dau (Iratzeder'ek uste dot), amatzen diranean zentzatu ere egiten dirala. Dana-dala, erderaz jardun bearra ezin kendu askori burutik. Geiago diralakoan-edo jakiña, inguruko erderak zabalkunde andia egiten dau gauza orotan, atsegin-garriak eta bizi-zirikagarriak ere erderaz agertzen yakez-eta.

Ta or ibilli gaituzu euskaltzale errimeak, barruko su ta amorruari eutsi eziñik. Ez nator gaur auzi oneri urtepiderik edo osakairik emoten. Ori luzaroagoko ekiñaldia litzake. Zer orduan? Auxe, ganorabako orreik lengo lepotik dabela burua ta ez arritzepo edo ez larritzepo. Ara, ainbeste zabalkunde ta ospe lortu eban Erroma aretan ere, bardintsu ebiltzan Eba-kumeak. Ta ez zan astebetean galdu latera ta galdu ta gero ere, kume ugariak ekarri dauzala mundura. Lateraren ondamendia beste zerbaiten datza.

Dana-dala, jakin-guraz egongo zarie-ta, ara zer yazoten zan Erroma uri andian eta zelan zirikatzen ebezan olerkariak «ankak arin eta burua ariñago» ebezan gonadun gatz-bakoak. Orduko Edurne, Gotzone-ta, erdera zabaltzailleak. Jubenal satira-egille ospetsuak orra zelan erabilli ebazan. Latera ta guzti ipiñiko dautzuet, iñork lateraz ba'daki gozo andiagoa atara dagion:

SATIRA VI

Mulieres

.....

Quaedam parva, quidem, sed non toleranda maritis.
Nam quid rancidius, quam quod se non putat ulla
Formosam, nisi quae de Tusca Graecula facta est,
De Sulmonensi mera Cecropis? Omnia graece,
Quum sit turpe magis nostris nescire latine:
Hoc sermone pavent; hoc iram, gaudia, curas,
Hoc cuncta effundunt animi secreta. Quid ultra?
Concunbunt graece. Dones tamen ista puellis:
Tunc etiam, quam sextus et octogesimus annus
Pulsat, adhuc graece? Non est hic sermo pudicus
In vetula, quotiens lascivum intervenit illud:

.....

Uskeria, noski, baiña senarrentzat gogorra.
Tuska izanda gerkeraz egin ezik, ederra
ez deritxo buruari. Orixe bai lan gaitza!
Sulmonatarra izan ta or Kekropis uts-utsa.
Beti be gerkeraz ari yatzuz-eta, ez ete
lotsagarria gureak latin ez ba'dakite?
Ikara, asarrea, poza, kezkak ere gerkeraz.
Euren gogo-ezkutuki danak izkera ortaz.
Oean ere gerkeraz ari yatzuz. Aur-gauzak?
Or gerkeraz larogeita sei urteko atsoak.
Olako atsoengan ez da izketa garbia
swn kai psuin **arako gerkar likiskeria.**

Erroma'ko biziera ez jakinda ere, lengo lepotik burua esan geinkean gure arteko emakume, abade ta gizon buru-eritxi batzuk ikusita.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

GAZTEAK, EUSKAL EDESTIA TA ABAR

Egizalea, zintzoa, emonkorra, biotz-zabalekoa, askatasun zalea, idealistea... ori guztiori dozu nun nai irakurten dogunez, mundu guztiko gaztedia ta, jakiña! Auñamendi inguruan bizi dan erritxu onen gaztedia, euskaldun gaztedia. Ori egia balitz!

Ona emen, lengo gau baten, alkarregaz automobillan gijoazela gazte batek esan eustana: Bere ezagun bategaz eztabaidan egoala esan ei eutson, «zeintzuk dozak baña itzat gazteak?» «Amabost urtetik berrogeira bitartekoak». Erantzun ei eutson besteak bere asmoak aurrera eroan nairik.

Poztu nintzan bene-benetan «epai zorrotz» ori entzun ondoren (naiz konforme ez izan), poztu nintzan diñot, epe laburrerako bada ere ni be gazte naizelako; «epaille» orren lagun asko dira ordea zartzaroan sartuak... ori olan bada.

Baña zer dala ta ekarri doguz gaztediari buruzko goralmen orreik gure gaurko idaz-gai onetara? Gure uste apalean, bietatik bat: edo osoan ez dira egizkoak edo gure gazteen arteko giroa lurrunez bete da. Argiago esateko, gu gazteok edo geure burua gaztetzat daukagunok ez gara ain zintzoak, ain egi zaleak eta ez ain askatasun zaleak, itz onen neurri osoan beintzat... ala azalez itz egiten ete dogu? Aspaldiko egunokaz, sarri izan dodaz alkar-izketak eleiz-mobimentu bateko gazteen buru egiten diranekin. Nere asmoa beti bardin agertu izan dautset: bai eleiz mobimentuak eta bai euskal kultura osoa (izkuntzatik asi ta irakaskintzaraño) kristau guztienak eta euskaldun guztienak dirala, «margoari» begiratu barik. Bestela bai kristautasuna ta bai euskal kultura estruktura barrietan itoko dira, orain arte beste estruktura atzeratuetan itotzeko zorian dagozan antzera.

Len esandako alkar-izketetan, buruz-buru, begietara begira nere ardura ta artegatasun guztiak utsak eta oiñarri bakoak zirala adierazoten eusten beti. Azpijokoan taldeak zebiltzanik ez eben onartzen, ukatu beti. Nik ziñestu bear? Egia esateko ez nuen iñoiz ziñestu. Gero jakin dodanak bide zuzenean nabillela erakutsi daust. Eleiz mobimentu orretako batzarretan eskualde batzuk madarikatuak izaten dira... zergaitik? Buru egiten diran batzuenzat (eurak egiten dira buru) eskualde orreik talde baten menpean ei dagoz... zelan izan leiteke ori? zer esan nai dau? Besteak orduan euren gogoko danari egongo dira itxura danez...

Tamala benetan bai bat naiz bestea. Eleiz mobimentuak ori izan bear dau, kristautasunean eta erri zaletasunean gaztediari eziketa oso bat emoteko dan alkarte bat, eta ez besterik. Ikusten dogunez baña ez da ori, aterkin berezi bat baño. Zelakoa dan jakiteko ez dago, ofizialki, euren artean zabaltzen dabezan kondaira ta langillearen jokabide laburpenak ikustea baño; guzurrez, erdiegiz ta maltzurkeriz beteak.

Agur'eko laugarren zenbakian kondaira orren aurka kritika bat egiten gendun, nortzuk zabaltzen eben jakin barik. Ori, orrela dala jakin dodanean ezin ixilik iraun, ezin nere lagun gazteari ziñestu.

Aspaldian Edestian sakontzeko asmotan gagoz baña au dala edo bestea dala atzeratu bear izan dogu, asiko gara baña.

Amaitzeko oar bat, naiz basamortuan jausi; errietako gaztedia egizko eziketaren bidean ipiñi nai bada egia bear dau oiñarritzat eta erriaren aurrerakuntza elburutzat. Erria, egia, askatasuna ez guzurrezkoak, ez atzerria, ez gogorkeria naiz gorriz naiz zuriz margotua izan. Erri zale ona izateko, gaztea, egi zalea izan bearko lelengo.

ARENAZA'TAR JOSU

KONTU - KONTARI

GOSEA BULTZARI

«Euskereak etxok balio ezetarako». Amaikatxo aldiz entzun dogu orixe. Gaztea nintzanean, euskera aldez zerbait egin guran gebiltzanean, entzuten neban ori. Ta ez erdaldunen aotik, baizik erderarik tautik be ez ekienetatik. Au mingarriagoa. Zek bultzatzen ebazala baiña ortara? Onexek: «Zu euskera aldez? Ni kaltez». Euskera, urliarena naiz berendiarena balitza lez. Baiña tira! sentzunbakokeria orreik aienatu dira ta guraso azkoren ardurea, Euskera da. Orra millaka ta millaka neska-mutiko euskeraz ikasten.

Goiko esakera zital orretzaz, azkenengo gerratean Barcelonan gertauriko izkirimiri bat kontauko dautsuet:

Catalunyako uri nausian millaka ta millaka euskal-errikatu, errefujiatu egozan.

Guda ta naste guztietan jazo oi danez, janariak urri. Tabakorik-eta, tautik bez. Pentsaizu; txokor bat erretzen norbait ikustean, atzetik jarraitzen eutsen, mutxikiña noiz jaurtiko, lurretik jaso ta bere ezpanetara eroateko.

Aro artan, euskal errikatueri janariak banatzeko ardurea, Paulino Gomez zanak eukon (G. B.) Bilbon be berak izan eban ardura ori.

Orduan, Barcelonan, Euskal-Erriko arazoak aizatzeko, eguneroko bat argitaltzen zan. Eta bere betiko oiturari jarraituz, Euskal-Atala ekarten eban, «Ogoñope» idazleak zuzendurik.

Janari banatzallea ta euskal-idazlea adiskideak ziran, gogai berdingeak ez eukezan arren.

Egun batez bai diñotso Paulinok «Ogoñope»ri: «Para que escribes en vascuence, si eso no sirve para nada?»

Eztabaida gogorra sortu eben.

Eta urrengo egunean, euskerak ezetarako balio eta eban ala ez, areri erakusteko, iragarki auxe idatzi eban Euskal-Atalean:

«Gaur, banaketa berezia izando da gure Janari Banatzallearen Etxean. Lusagarra, babarruna, arroza ta iru pakete kebelar banatuko dira».

Goiz artako bederatziretan Paulino, bere landolara zuzendu zanean, arrituta lotu zan. Millaka lagun egozan, ate-aurrean asi ta etxadiari uztai egiñaz, bata-bestearen atzean, kolan.

—¿Qué es esto? ¿A qué viene esto? —iñoan janari banatzalleak geroago ta arrituago.

Aurrenengo egozanak, euren izparringiak iñoana azaldu eutsen, eta orduan, txitxi baiño asarreago ots egin eutson «Ogoñope»ri urrutizkiñez:

—Baiña... baiña... zer arraio idatzi dok?, gazteleraz.

—Ez adi larritu mutil, iñok etxok ezer jakingo, euskeraz etxok balio ezetarako-ta!

Beiztegi gure lagun idazleak badaki zerbait jazokun orretzaz.

ABELETXE

LEENTASUNA ZERI?

Dan-dan-dan...
—Su-eskilak!
—Sua!
—Sua!
—Joxe! Anton! Luis! Patxi! Korri, sua!...
—Non?
—Erri basoan!
Eta an dijoaz, korrika ta zilipurdika, erritar guziak, zaar eta gazte, andre ta gizon, paziekin batzuek, aitzurrekin besteak; erratzekin aiek, aizkorekin auek...
—Sua!
—Sua!
—Ai, ene...
—Korri, korri...
Iritxi dira lenengoak basoko su ertzera.
—E! Beko oiek, zabiltzate azkar!
—Arraioa, au dek aizea, au...
—Bai, lanak emango zizkiguk.
—Tira: erratzak dituzutenok, asi sua jotzen.
—I, Jooxe, asi gaitezen goitik erretzen ari diren arbolak ebakitzen. Baiñan, kontuz! Sua dagon aldera bota bear dizkiagu.
—Ia, aitzurdunak; ekin lu-ebakik egiten, suari ersgune bat egin daiogun.
—Ze-egitezu or Jospiñasi? Arzazu arbasta bat, eta, jo sua!
—Zeintzu dittuk, or, ezker aldetik datozen oiek?
—Zein izango ittuk, alkatea ta kontzejalak... Nun arrane egon ote dittuk orain arte?
—Nun egongo ittuken; beti bezela, lotan!
—E, Joxe! Patxi! Ze milla demoniño ai zeate aizkorez arbola botatzen?
—Ez al-dezu ikusten? Suari bideak ixten!
—Eta zuek ere, or, aitzurrean, suari eragozpenak jartzen aiko zerate?
—Bai: suak ezin pasako du lu-ebaki au...
—Utzi eizue ai zeaten lanei ta, asi zaitezte denok beko errekatik ura karriatzen!
—Beko erreka urruti dago; bestetik, karriatzeko lagun gutxi gera; orrela ez degu surik itzaliko!
—Ago ixilik, Joxe! Ni nauk alkatea ta, nik bestek ez dik aintzen emen.
—Zuk agindu? Ez zu, ta, ez zure lagun oiek, ez zerate gure gogokoak. Zuek baño len ba-zen baso au ta, zuek ez zeratenean ere erri baso izaten segittuko du.
Emen ai gean ezkeroz, suak ez du aurrerik egin...
Ia mutillak, eman, gurea dek eta!
—Joxe, Joxe... Ik, orain ere, lengo lepotik burua, e? Baiña ikusiko dek agintzen detan edo ez. Geldi guziok!
—Ze geldi ta ze otxokuarto... Mendia gurea da ta ez zuena. Eman, mutillak, eman, sua menperatu arte.
—Zer darabiltzute?
—Alkateak,) kaxo, Anselmo! Emen gabiltz, sua dala ta ez dala, diskusio batean. Auek, euren ustez, sua itzaltzen ai omen dira, eta, guk esaten diegu, dana utzi-ta beeko errekatik ur karrio asteko. Sugiña zeran aldetik, nola itzaliko zenuke su au?
—Ba, nere ustez, eta aizea egotik datorrenez, danok batean, zaar eta gazte, andre ta gizon, ego aldetik orma bat egingo nuke aizea pasa ez dedin, era orretan, sua, indarra galdu-ta, berez itzaliko da.
Anselmo gizon jakintsutzat zeukatenak, gogor ekin zien orma egiteari. Besteak, lengo ekiñei jarrai zien. Eta, aako aiek, aspertuta, euren etxera biurtu ziran.
Basoak zer egin zuan?
Indarrak banatu zirelako, sutan jarraitzen du oraindik...

ZALOÑA

AZKATASUNA

Azkatasuna itz polita
egiz dabillenean
bizitzako bidetan.

Landara,
arri,
abere,
notin
azkatasun egarriz
bizi dira
bakoitza bere erara.

Arkaitzak
denporalaz burrukan,
gogor oiñarritzen dira
erpin gain gaillurretan.

Aizkorri
Aralar
Anboto
arritu barik dagoz
ekaitzari arpegi emonaz
euskal lurraren babesean,
beti ernai,
iñork zapaldu barik
euren azken joraneko
kemen gordiñean.

Landarak
eder,
garbi,
margotsu,
agiri dira
beti,
eguzki argira
adi
azkatasun indarrez
usain gozoa zabaltzen
izadiarenganako
maite garrez.

Gizonaren gogoa
iñork ez dau lotu
ez arresiek
ez indarrek
ez Jaungoiko berak.

Azkatasun joranez
bizi da gizona
otsoen artean
mendian eta urian.

PAULIN

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik

Ez dot egundo aaztuko Txo begi dizdiratsudun etxeko txakur txiki, zuria, gurera ilteko zorian eldu yakun eguna. Baiñan gertaera au obeto ulertzeko, gogora daigun yazo ziran gorabeerak.

Txo'ren ama txakur-eme bakartia zan. Or-emenka erritik ebillen gose utsaz sastegi ta ondakiñetan musturka. Gaixoak ez eban iñoiz bere yanari-irrika amatau. Arrapa-gaiaren bat idoroten ebanean, yoranez beterik irentsiten ebala, ikarati begi sarkorrez inguruak aztertzen ebazan, mutillen arrikadaren bat edo-ta beste txakurren erasoak garaiz oartzeko. Olan irauen txakur-eme lander onen biziera itsa ta zorigaitzekoa. Baiñan egun batean, igeskorra ba-zan bere, eguzki-izpi batek bere bizitza iñolako argiz edertu eban... bai, gosea ta bakartasuna aaztu-arazteraiñoko zorion bat bere bizitzaz yabetu zan, eta orduan biotzeko taupadak ariñagoak eta begien dizdira biziagoa biurtu yakozan... Au dana gertatu zan erriko yauregiko txakurra ezagutu ebanean. Ingalanderra'tik ekarritako enda utseko fox-terrier au oso ondo zaindu ta erabillitako txakurra zan. Eta olan, gaixoak udabarri yori bat ezagutu eban...

Egun batean, Txo'ren ama zergaitia yakin barik, basoko bazter batera iges egin eban eta eskutune baketsu ontan abi bat atondu, ta urrengo egunean bost kume yaio yakozan; iru eme ta ar bi. Onen arteko biziena, aitaren itxura berbera erakusanak, gure Txo zan bere begi bizi ta adimen zorrotzarekin. Ostera bere ama gaixoarentzat nekaldi garratza asi yakon, txakurkumeentzako bearrezko yanaria aurkitzearren Alabaiñan, ezin eikezan kumeak egokiro azi, ta bana-banaka ilten asi yakozan eta azkenean Txo ta beste kume bat soillik geratu ziran. Orraitiño, gaizkiena gertatzeko zan... Beiñola errian zear yanari billa yoiala ta kale-ertzeko zikinkeri-meta batean musturka ari zala, ots batek kale-erdira oldartu-arazi eban, berebil bat etorren une berean. Eriotzak min aundi barik ez-ustean artu eban eta kale-ertzean bere gorputz ausia geratu zan. Ordurako txakurkumeek illabete bi inguru izango ebezan. Egun artan gosez eta bildurrez dar-dar, amaren etorrera alperrik itxaron eben. Gero, gau izugarri baten ondoren, egun sentia egin baizen laister, kumeek abia betiko ustu eben eta noragabe, basoan zear yanari billa abiatu ziran. Egun artan ez eben gauza aundirik idoro, ta gautu zanean, biok aril dardartsuak bezela orbel-artean alkartu ziran gauaren ezten otza uxatzeko. Ameskeriz beteriko gau artan, gosez akullutako azeri batek kumeak usaindu ebazan, eta arrapalada batean Txo'ren laguna artu ta mendigora ostendu zan, txakurkume illa aboan eroiala. Bildurrez beteriko Txo gaixoak iñoizkorik gau izugarriena igaro eban, goizaldeko argiaren igurikan. Noizbait goizabartu zan, eta olde bakan batek eraginda, mendi-beera abiatu zan erriko babesaren billa. Onela dar-darrez eta otzez, eriotzagandik iges egiñaz, txakurkume gaixo bat gure errira eldu zan.

Eta olan Txo'k bere amaren biziera berberari emon eutson, zikinkeri ta sastegietan yanari urri ta iguingarria billatzen ebala. Ba-zan yanari ta ongi izatea baiño yoran biziagoaz nai ebana... bere bizitza itun eta bakartia alaituko eban gizaseme baten maitasun eta laztanak. Alabaiñan irrikan billaturikoa ez eban iñundikan idoro ta olan egunak yoan egunak etorri, noragabe irauen... baiñan beiñola bere bidea Trauski'renekin zearkatu zan...

Trauski...! erriko arlotea, mozkortia, gure barrutiko eskalea...! Aldatz-beera amildu izan zan gogo-auleko gizon baten etorkizuna...! Trauski, sendi on bateko semea izan zan. Gizon eder, begikoa, baiñan naimen aulekoa, gaztaroan bere gurasoak Ikastola Nagusian sar eitean alegindu ba-ziran bere, dana alperrik; mutillak bide errazara yo eban. Azkenik, pelotari billakatu zan eta bai ederki gure yoko ederrean aritzen zala...! Olan goiko mailletaraiño igon zan, baiñan bein gaillurera iritxi ezkero, edateari ta biziera atsegiñari emon etsozan eta luzaro gabe, mailladitik beera erortzen asi zan. Berrogei urte ez ebazala, ez zan ezertarako gauza ta bizitzeko, basetxe batean morroitzat lanean asi, baiñan ardao madarikatua...! bere zeregiñak ez ebazan betetzen eta andik beste basetxe batean asi, gero beste batean eta abar. Noizbait lanari itxi, ez baiñan edateari, ta eskale biurtu zan. Zorro bat lepoan eroiela, gure araneko auzune guztiak ikertzen ebazan, eta gure barrutiko mugaraiño eldurik, bidaiak ostera gure erritik asten ebazan. Gaberako zorroa okondoz beterik, artutako txin urriak ardandegietan urtuten ebazan, eta gero kordokari edozein txokoan lotan asten zan.

Gau batean, oi bezela leenen topo egindako aterbeen txirlora-oatze batean etzaten zala, iretargi-pean zerbait zurixka antzekoa begiztatu eban. Aterbeko txoko batetik, begi gartsuetako txakur txiki zuri batek adi-adi bildurrez igitzen ausartzen eziñik, so eskaritsu batekin begiratzen eban.

—Txo...! orra or ni bezelako beste eskale bat. Tori motel —abots totelaz esan eutson okondo bat yaurtiaz— yan egizu nai ainbat, antza ez dakizu ogia zelangoa dan.

Txo gaixoak emoitzaz arriturik, ez zekien zer egin: ogi zatiari oratu ala gizon areri begira ta begira egon. Azkenean gose utsaz okondoa irentsi eban. Gero Trauski'k beste zati bat bota eutson, baiñan Txo'k ez eban yaramonik egin, eta gogoa begietatik eriola, erabeti, gizonagan urreratu zan. Urbil samar zanean, Trauski'k esku bat luazatu ta Txakur-gaiñean ipiñi eban bere buru uletsua laztantzen eutsola. Txo'ren ama il zanetik, ua zan ain zuzen, leenengo laztana ta esku latzaren txera goxoa oartzean, zerbait esangaitza bere izate guztiaz yabetu zan, eta bertanbera, gorderik eukan bere maitasun-altxorra eskaleari betiko emon eutson. Gero, biotzaren poza menderatu eziñik, gizonaren aurpegi ta eskuak milikatzen asi eutsozan.

—Txo...! naiko bedi motel...! ez neri aurpegia garbitu, bestelan biar errian ez nabe ezagutuko...! —erdi irriparrez Trauski'k esan eutson.

Gero Txo gizonaren ondoan etzan zan iñoizkorik zoriontsuen eskaleak beso bat lepo-gaiñean ezartzen eutsola, ta biok adiskidetasunak alkarturik, gauaren magalean lotan asi ziran.

Eta olan, eriotzaraiño iraungo eban maitasun bat euren artean sortu zan. Txo'rentzat senaz beteriko biziera barri bat asi zan, orain nori yarrai ta maite izan ba-ebalako.


Eskaleak oitura eban esateko guztiak Txo...! bategaz asi, bai ta txakurrarekin itzegiten ari zala bere, ta orregaitik onek Txo izenari erantzun oi eban. Trauski goizean goizik yagiten zan, eta gosaria atondu ta gero, zigarro bat erre ta biok ase ta lasai bideren batetik edo abiatzen ziran, gure araneko edertasun eta pakea biotzbegietan eroiezala. Olan astiro-astiro, gure barrutiko erri guztiak ibilkatzen ebezan, arantzakoan araneko ego batetik eta onantzakoan bestetik yoiazala, bideko auzune ta etxe guztiak ikertuaz. Gose ziranean edozein bazterrean yesarri ta bazkari artu, gero bideari ekin eta illuntzean, urbilleneko ardandegian eskalea sartzen zan txakurra ate-ondoan gelditzen zala. Axe zan Trauski'ren auleriko ordua, ta bildutako txin guztiak edaten ebazan, gure Txo bere begira ari zala. Askotan txakurrak bere ugazaba berantesten eban eta orduan ate-zear bustana astinduaz zaunka biguiñez dei egiten eutson gizonaren oarpena erakarteko noski, baiñan alperrik, azkenengo txanpona erre arte, Trauski ez zan azaltzen. Bai orduan txakurraren poza gizona barriz ikustean...! Zoro biurtu bai'litzan, bere inguruan yauzika (saltoka) ebillen ugazaren urrats kolokari erraikiola, barriz iranazi ebalakoan. Yarraian, izarren argipean urrenen estalpe. marandio, edo txabolara abiatzen ziran, eta ara eldurik, Trauski etzangi batean egokitzen zan, eta txakurra beso bategaz bereganatuaz, ardoak kutsuturiko mintzo totelaz asi oi eban bere gaztaroko ekintza arrigarriak, goren maillako pelotaria izan zanetiko, txakurrari esaten eta onek esakionari tutik ulertzen ez ba'eutson ere, begi dizdiratsuz eskalearen esanari adi-adi entzuten eban. Gero, gauaren esku latzak Trauski'ren begiak ertsiten ebazanean, Txo'k miikada batzuk aurpegian emoten eutsozan eta burua yaubearen bular-gaiñean ezarrita, eskalearen zurrungak urrumaturiko bera ere lotan asten zan.

(Jarraitzeko)

AGIÑALDE'KO TXEPETXA

KIROLAK

ALKAR-IZKETA



Ereñozaga eta Legarreta'tar Gabin Gatika'n jaio zan orain 27 urte. Mungitarren artean eta Mungi inguruko erri eta auzoetan oso ezaguna dogu, baita euskaldun guztien artean bere. Bere txirrindulari bizitza «S. C. Mungia»'n asi eban, 16 urtegaz, gero urteak gora joanik, Oldarra'ra joan zan, andik Fagor'era, Ferrys, Karpy ta orain Kas'en dago.

Alkar-izketa onetan, txirrindulari lez, ta gañera gizon lez ta euskaldun danez itaunak egin gura neuskioz. Gabino Mungia'n kutun-kutuna dogu, bere zintzotasunagaitik eta bere izakera zabalagaitik.

—Gabino, zeintzuk dira zuk jokatutako lasterketarik garrantzitsuenak?

—«Inglaterrari Biraldia» etapa bat irabazi ta 4'garren gelditu nintzana danera, gero «Rioja'ri biraldia» ta «Rejiño arteko Españi'ko Txapelketea».

—Baita orrein gaiñetik gogoratzen jat 1968' gnean Españi'ko Mendi-goraka Txapelketan bigarren geratu ziñala, ta urte aretan jokatu zendun Ludi'ko Txapeldetea Españi'ko taldeagaz, ez da olan?

—Bai, ta Españi'ko Txapelketa ia irabazi bearrean izan nintzan.

Aurtengo urtea zelan joan jatzu?

—Aurten ez dot zoririk izan, baña alan ta bere pozik nago.

—Bai, ondo gogoratzen dogu, mungitarrak batez bere, zenbat jasan izan bear zenduan Españi'ko Biraldian. Gaur baiña, pozik izango zara Basauri'ko Sari Nagusia irabazi dozulako, ez da?

—Bai, pozik nago urteari amai ona emon dautsat-eta.

—Zure txirrindulari bizitzako pozik aundiena?

—Españi'ko Txapeldun izan nintzanekoa Bizkai'ko taldeagaz.

—Eta zure larrialdirik gogorrena?

—Nire lagun Balendin'en eriotzea. Ondo gogoratzen jat azken aurreko gaba otelean.

Gela baten gengozan, ta gero bere azken arnasetan bere ondoan egon nintzan.

Balendin izan neban nik lagunik onena.

—Bai, danok gogoratzen dogu bere eriotza, mungitarrok batez bere, gizon zintzo ta euskalzale bene-benetakoa zan. G. B.

—Pozik ete-zagoz Kas'en?

—Bai, poz-pozik eta uste dot datorren urtea bere emen igaroko dotela.

—Aurten bere Españi'ko Txapelketan jokatu dozu, Gabika ta Felix Gonzalez lagun izan dozuzala. Zer jazo jatzuen?

—Alde batetik Gabika'ren jausikeran indar asko galdu gendun, eta gero bion artean ezin izan gendun ezer egin. Aukeratu eben bide a gogorra zan benetan.

—Ba-dakiza zure emazte-gaia Orue'tar Ma. Jesús dala, neska jatorra ta euskalzalea. Laster ezkontzeko osmoa ete-daukazue?

—Ez, oraindik ez dot uste.

Nik baiña laster beste euskaldun sendi jator bat izango dogula uste dot.


Oneik dira ba, Gabino gure lagunaren erantzun batzuk, Basauri'ko lasterketea irabazi ostean artutakoak eurok. Nik, zorionak emonaz AGUR'en izenean eta nere izenean, auxe dirautzut: jarrai daizula aurrera, ta eroan daizula euskal izen abizenok ludi guztia zear.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER'EK

ANAIARTEKO JOKABIDEA

Eibar, bide erdian dago, ta bizkaieraz egin arren gipuzkoarra da, ta eibartarren zabaltasuna be beti ezagun agertzen dalako, ortxe bertan izan bear eban anaiarteko ezbearrak zuzentzea. Odolaren deiari erantzuten jakonean lortzen dogu ludi onetan benetako egoera, ta oraingo au izan dogu egiztatzallea; «Adizkidetasunezko Saria», Eibar'en il onen 14'gnean, euzko ostikoketa talde nagusi bien artean, Athletic eta Real Sociedad. Sari onek alkartu dauz, eibartarrentzat atsegin betean, erri anaikor bi. Fubolakin atan be; ez dala ille asko, anai arteko burrukea sortu eban orregaz. Jaunak gurako al-dau, kirola, beste gauza askoren artean, anaiak alkartu ta ondo ezagutzeko bide izan dedilla beti!

SALARI



EMAKUMEEN OSTIKOKETA

Aspaldiz ostikoketatik, oñezko-pelota ikustetik alde eginda gagoz, baña erriko jaiak zirala-ta igande baten emakumen, neskatillen oñezko-pelota jokaldi bat iragarri eben da, an juan gintzazan Galdakano'ko «Gorantza» ta La Arboleda'ko «Mendi-Erria» ostikoketa kidean artian jokatuten eben jokaldia ikusten. (La Arboleda orain irurogei ta amar edo larogei urterarte be Zugadi izenaz ezagutzen zan, bertan egozan zugatzdi andiak gaitik biar bada). Bai-ba, ordurarte guk iñoz ezgenduan neskatillerik ostikoketan ikusi, etxeko txakur apalari edo katu lapurreri ostikadan bat emoten izan ezik, baiña... Zelan aldatu diran bertoko oiturak!

Neskatilla lirain, lerden argiak ziran danak, gure argazkian ikusten dan lez, eta, kementsu jokatuten eben ta, polito pelotia joten ebenak be ba'ziran euren artian, beraz, atsegin izan yakuzan. Egiz baiña, gure ustez oñezko-pelota, ostikoketa, ezta kirol egokia emakumeentzat, gizonentzat baizik, gizon kiroldar zintzuantzat, baña ez txindi-zalekeriagaitik jokatuten daben alperrantzat be.

* * *

Orain urte batzuk dirala Aramayona, Arrasate, Elorrio ta Arratzola'n bitartian, au da; Araba, Bizkai ta Gipuzko mugatuten diran Betsaide'ko gallurtxuan eta, Anboto ta Udalaitz aitz zorrotzak ikusle dirala, oroigallu bat jaso zan, mendietan il-dako mendigoizalien gomutagarritzat, eta, ordutik onera urtero bertan batuten dira Euskalerri'ko mendizaliak, Irallan iru'garren igandean, eguraldi txarra edo ona egin, geure lagunen gomutaz.


Aurten be, beste urte askotan legez, bertan izan gintzazan, mendian il ziran areitako asko, danak gazte garbi zindoak, benetako lagunak gendubazan-ta, eta gu legez edo aurretik eundaka, aneika gazte ta antziñatsu gazte izaneko notintza ikeragarria aurkitzen zan bertan. Gaztedi argi alaia, baña, bertan ospatu zan euskerazko jaupan lotsa andiz erantzuten ekiana. Orretarikua da euzko gaztedi mendi-zalia, arimaz garbia, soñez zindua ta odolez kementsua.

Bertan aurkitzen ziran Euzko Mendizale Bazpatza'ko agintariak eta, bai-ta Españia'ko Mendizale Bazpatza'ko leendakaria be, beste zeregin barik Madrid' etik ortarako etorrita; itz labur batzuetan euskeraz agurtu gendubazen. Pozgarria berak guretzat, gure itzkuntza ederra aintzat artutia, atzerritarrak.

* * *

Urte bi edo iru dala, sortu zan Firestone errizkan «Ibai-Gane» euskel izen politakin mendigoizale talde bat, bertako gaztedi mendi-zalian bitartez. Eta, euren mendizaletasuna kirol-jakintza bitartez sendotuteko asmu onez, itzaldi batzuk gertu ebezan, bertan daben aretoan, Bizkai'ko mendigoizalerik ospetsuenak azalpenik argienak emonaz kirol garbi ontaz. Oso egokiak izan dira itzaldi orreik gazte zintzo orreik esan dauskuenez. Orretara izango aal-da mendigoi-zaletasuna, ta lizunkeri ta oitura zikiñetan jausteko arrizkuan aurkitzen dan gure gaztedi zinduantzat.

ALTUNA'TAR JOSU



MUNGIA

GORBEA'TIK IBILLALDIA

Urte batzuetatik onantz, mendirako zaletasuna biztu egin dala esan leike, gure errian beñipein. Igande guztietan, talde batek edo geiagok, euren ibillerak egiten dabez, nai egun erdikoak, nai egun osoak izan.

Zorroa lepoan artu jatekoagaz beterik, dindilizka zatoa, lantzean bein zurrutada bat egiten dala, danak poz-pozik, kantari, baserririk baserri, basorik-baso ta erririk-erri.

Bizkaia'n mendi ederrak asko dira, onein artean bat ezagunena, Gorbea. Jai egun geienetan mendigoizalez beterik egoten ei-da mendi au, gu bere an giñan lengo igandean ta egualdi txarrean. Otz, euri, aize ta enbataz inguratuta gengozalarik. Ia ez gendun ikusten aurreko laguna, alan ta guztiz bere, iñork ez eban nai atzera egiterik, danak gogotsu joten eben aurrera, a bai gauzaren ederra! Ta zer esan be ez, gora elduta ondorengo poza ta bakea. Zori txar danak an goian amaitu ziran!

Gure zelai-aterpea ipiñi genduan zutunik geure tresnakaz orniduta, ta bien-bitartean, lañoak iges egin eban; ondoren gañeko burdin-gurutzea agurtzera urten giñan.

Azkenengo zati au izango da gogorrena, baña gaztearen adoreak laster goitu eban, an bai biotzak zabalduten dirala, beko edertsaunari begira.

Ainbeste edertasunez beteta Igiriñao aldera jo genduan ta an gure sukaldariak bazkari atsegin bat ipiñi euskuen. Bazkal ostean, geure lurra abesti jatorrez agurtuaz, etxerako bidea artu genduan.

Urrengo ibillaldia noiz, gazteak?

ABAUNZA'TAR MIKEL

DURANGO

Biar, il onen 31, ta etzi «Deunoro Eguna» dirala, Euskal idazti ta discoen salketako V asokea izango da, Uribarreko Ama Miren'en elizpean.

Salgaien erakusketea ta salleetea egun bi orreitan izango dira; goizeko 9,30'etatik ordu bat et'erdiak arte, ta arratsaldean, asi lauretan eta bederatziretan amaitzeko. Bitartean, txistulari, abeslari, dantazari ta abar.

TIRKI

AZTER DITZAGUN

Arantzazu'n ezer erabaki ote-zan ala ez, garbitu nairik, Euskaltzaindiko «OAR» bat zabaldu da euskal-albistarien artean. Erderazko esana da, ako ura: «Cada cual habla de la feria, como le va en ella». Ta guk ere, gere ikuspegia izan genuan billera aietan. Arrazkero, gauza negargarriak gertatu dira gure artean; eta nere aldetik, ez orduan eta ez gaur, izan det bildurrik nere «EZETZA» biribilla adierazteko gai ontan. Lenbizi aldaba gogor jo bearra zegoen, eta ala jo nuan nere aurreko idaz-lanean, Z-A'an eta AGUR'en.

Baiña anai-arteko ezpaia degun ezkero, ba dakigu biguinago elkar-izketa sortzen ere, eta gure aldetiko iritzia garbi azaldu bearra degunez, goazen aurrera gure arrazoietan. Au egingo ezpanu, ez nintzake nere barruarekin pakean geldituko. Euskeraren etorkizuna, onen larria dan ezkero, azter ditzagun, gure ustez, gai ontan alde batekoak eta bestekoak darabiltzkiten zergatiak.

Gizona, misterio aundi bat da

a).—*Zenbait nere iritzikoak ez izatea, ez da arritzekoa. Baiña Satrustegi, Ugalde bat, Mitxelena bat eta beste nere antzeko eziera izan duten zenbait eta ni, gai ontan onen iritzi alderantzikoz banatuak gertatzea, benetan da adigaitza.*

b).—*Euskera-Batasun bidean, aztertu bearreko gaiak, ain baitira garbi ta arruntak guztiontzako... Nik, eta edozeiñek, oiñetakoak estu ala nasai dituan jakiteko, eztu zapatari-langintza ikasi bearrik. Eguzkia atera dan ala ez jakiteko, ez degu «astronomo» karrera egin bearrik. Alakotxe arruntak dira, nik uste, arazo ontan azter bearreko gaiak.*

d).—*Euskera, alde guzietan LARRI DABILLELA, guziok ikusten degu. Erronkariko euskera joan zan. Azkenengo Z-A'n Larresoro'k esaten zigun, ZUBEROAN ere, ba dijoala. Saraitsun, Ultzaman, Aezkoan, Elizondon bertan, eta Iparaldeko iru Euskalerrietan, nolatan gabiltzan, ez da iñorentzat izkutuko gertaera. Araban, arnasestuka bizi da gure izkuntza Aramaio aldean.*

Gipuzkoa, Euskalerri erdian gerta dalako, beste probintzien babesean gordeena izan da euskalsaillean. Baiña Gipuzkoan ere, gure azken-gerrate aurrean, aurretaraiñoko guziak euskaldun utsak ziran errietan, gizaldi berriak erderapean galduak ikusten ditugu. Eibar, Bergara ta amaika erritan, aur guziak euskeraz mintzatzen ziran beren jolasetan eta ibilli guzietan. Gaur, erri oietan, gaztedia ta aurrak, geienak erderaz ari dira. Euskeraz ikasi duten gazte ta aurrak, berriz, beren lagunengana biltzen diranean, denak erderaz itzegin bear dutela uste dute. Euskera, etxean eta zarren arteko izkuntzatzat dute; ta erdera, gazteen izkera dalakoan bizi dira.

Erri ezjakiña, oraindik, gai ontan bere «konpleju» ta «gutxiespen» mendean bizi da, ta euskera atzeraka dijoa erri orren artean. Oraindik asko ditugu euskaldunen artean, erdera, euskera baiño dotoreaga dala sinis-sinis eginda daudenak, batez ere emakumetan.

Azkoitiarrok, azpeitiarren euskerai parre egiten diogu; ta azpeitiarrek beste ainbeste egiten diote azkoitiarron euskerari. Oiñati, Bergara ta Bizkai aldeko zenbait jende, Gipuzkora datorrenean, euren euskera egiten lotsatu ta erderaz egiten asten dira, ta abar eta abar...

Kontu auek guztiak, guztiok garbi ikusten ditugu. Ala ere, begira nola banatzen geran geron iritzietan. Guk, eguardia baiño argiago dala uste degu, egoera larri orretan dagoen erriari, zama berririk ezin dakiokela bizkarrera bota. Ori, euskera il-zorian jartzea dala bait-dirudi. Eta onela gabiltza, loa galduta, barrua gaixotuta, gazte-talde baten kasketaldiagatik, gure izkera galduko ote zaigun bildurrez.

Satrustegi, Ugalde, Mitxelena ta beste gure antzeko eziera ta giroa izan duten batzuek, berriz, «H» zorioneko ori, Batasunerako BEARREZKOA EZ DALA aitortu arren, letra orren alde itxu-itxu jarri dira. Nork uler dezake, oiek eta guk onen arazo garbian, onen ONDOREN ELKARREN MUTURKAKOAK artzea?

e).—*Gure IKASTOLAK oraindik bear aiña indar ez dute artu. Euskeraren kezka degunok, oso gutxi gera besteen aldean.*

f).—*Azken-urte auetan, kanpotik sartu zaigun jende-ujola, ikaragarria degu. Beraz, gure egoera ezin larriagoa da euskera aldetik.*

Gauza auek guziak ikusteko, ez da «linguista» izan bearrik. Eta ala ere, ontan gure etsai dan taldeak, azkenetan dagoen izkera orri, zama berria bizkarrera bota nai dio!!!... Euskera iltzeko?...

* * *

Askotan, auxe ere pentsatzen aritzen naiz: euskaldun jatorrak, beti ere, oso ajolabageak izan dira euskera-saillean. Beraz, ba dirudi, euskaldun arrunta, euskaldun «normala», euskal-kezka gabea dala.

Euskaltzaletasunak jo gaituan euskaldunok, zer gera ba?... «Anormalak?» «Aldrebesak?»...

Mutillok!... Geron burua zaitzen asi bearko degu, «por si las moscas». Ibilli ta ibilli, «AKADEMIA» itzak, aurretik letra bat besterik ez du bear, KAKADEMI biurtzeko. Ta kontu, Jainkoagatik, orain arte «akademiku» izan geranok, «kakademiku» biurtu!!!!

ETXANIZ'TAR NEMESIO

EUSKERAREN ALDE

Luis Mitxelena jaunari

«Egan»'en erantzun diezu, «Z. A.»'n argitaratu nituen idazkiei. Aitortu bear dut ez zaitela erraz izan zure urrats bideetan jarraitzea, batez ere, nire gaitik kanpora ibilli zeranean. Jakintsu zerala adierazi nai izan nauzu. Ori leendik nekien.

Erraza litzake neretzat zure irainei irainez erantzutea. Nere izenari diotan errespetuak, ez dit aukerik ematen. Naizen bezelakoa izan, eta ez bestek nai lukean erakoa.

Leen esan det ez zerala nere bideetan ibilli. Nire kezk eta galderei ez diozu erantzun. Edo, erantzun nai izan ba'diezu, bide-zearka izan da. Arrazoi orregatik, nik aukeratuko dut zure zeri kasu egin ta zeri ez.

A! Ta bein-betiko adierazi nai dizut, ez naizela euskera bateratzearen etsai; baiña, bai, ezarri nai diguzun izkelki naasketa orren kontra.

Gai barna jorratzen asi aurretik, adibide bat egin bear dut.

Nire idazkiak «Zaloña» izenordez izenpetzen, «nor zen nor» genekienean asi nitzan. Nire «izen propioa» ez da nik aukeratua. «Zaloña», bai: Eta orregatik jarraitzen dut izen orrekin. Zein naizen ez dakizula? Ori da gutxiena! Arazo ontan ta besteetan, indarra ez dago izenean, arrazoiean baño.

Eta orain goazen zuk diozun nere «saltsa» barnera.

Nola-nai dala ere, jaun oietako batzuek muiñean (euskera bateratuaren aldekoek) zer darabillen jakitea guztiz onurakorra izango litzakeala deritzait, bai euskera ta Euskalerri osoarentzat Misterio batzuek larru gorrian jartzea ere komeniko lirakela uste det, esaten nuan «Z. A.»'n argitaratutako «Euskera bateratua eta ikastolak» nire idazkian.

«Goazen, bada, (diozu) «Zaloña»'ren gogara, misterio beltz hori biluztera edo, nahiago badu, larru gorritan ipintzera. Halaz ere, bihoa aurretik nik, edozein Internazionalekin har-emanik baldin badut, sortzeko den Bostgarrenarekin dela: Egunen batean gobernatu guztiek gobernatzaile guztien kontra sortuko dutenarekin alegia».

Lege-etsai, anarkista zaitugu beraz? Zuk aitortu duzu ta ez nik alatzaz salatu.

Baiña, zu ez zaude ni kezkatzen nauten **batzuen** sallean. Ezagutzen zaitudanez, ondo dakit nola pentsatzen duzun.

«Bai «Zaloña». Ez diote ez zure haurreri ez besterenei ikastolan «amaren hizkuntza» irakasten, baizik eta mintzaera horretatik hurbilagoa edo urrutiagoa, baina bestelakoa, halaz guztiz».

Ez dut dudik egiten ala diozunean. Baiña, ala ta guztiz ere, «h» ta guzti apainduta, sakeletik atera duzun izkelki naasketa baño «ama-izkuntza»'go da edozein eskualdeko ikastolan erakusten dan izkelkia.

«Ez da aski gure hizkuntzaren batasuna euskerak iraun dezan, ez urrik eman ere».

rentes textos escolares y hacer que los maestros supieran algo de dialectología para no contribuir a mezclar demasiado artificialmente los dialectos». (Don Antonio Tovar'en erantzuna).

Iraupen gaien gabiltz orain, Mitxelena jauna. Eta ikusi dugu gaiari buru Tovar jaunaren erantzuna. Eta, izkuntzalaritzat daukat Tovar jauna.

* * *

Euskera bateratuaren alde dabitzan batzuen muinean jokabide makur batzuk susmatzen ote ditudan pentsatzen duzu. Barkatu, baiña, nik ez dut oraindik susmo txarrik ezertarako aitatu. Nik, batzuen barne griña zer den jakin nai dut. Sail bat jorratzen alkarregaz egin bear ba'dugu, zentzu-arrontak beartzen nau lan-lagunen jomaguk ezagutzera.

«Gogoan zer darabilten jakin beharrean aurkitzen gera, erremdiorik gabe, haien artean bizi behar dugunez gero». Zuk idatzi duzu ori, ustekabean neri arrazoi emanaz... Bigarren aldiz, biok bat.

«Creen unos que la unificación deberá consistir en la preponderancia que uno de los dialectos adquiera sobre los demás, por evolución natural si se nos permite decirlo así, por motivo del número y de la excelsitud de las obras literarias (begira nondik nora «h» «nazkagarri» horrek baduen zenbait indar, Axular'ek eta bestek h-dun euskalkia erabilli zutelako, besteak beste) que ese dialecto privilegiado produzca, y que lo hagan imponerse sin violencia a los demás».

Erotzeko zorian ibilli naiz aitatzen duzun Elizalde'ren esan ortan h'ren alde ikusten duzun arrazoi billa, ta, naiz-ta albo guzietatik aztertu, ez dut h'ri ateak irikitzen dizkan arrazoi burrundarik kausitu, ixten dizkan maatillak baizik.

Elizalde'k, bi baldintzi lotutako bide nagusi bat aurkezten du.

Bidea: Ugaritasuna ta goi-mallako literatura.

Baldintzak: Gaintzea ta indar-gabe ezarzea.

Lenengo baldintzari eltzen ba-diogu, nik baño obeki dakizu iñongo euskalkirik ez dela iñogan gaindu. H'gaz egindako literaturak, euskaldunok ba-ezpako irakurleak geralako edo, etxeko muga barnean izan duala egite-nagusia.

Ez diot literatura orri duan merezimendurik kendu nai. Bai, ordea, zuk, ala nai duzulako, eman nai diozun «preponderancia» ukatu.

Bigarren baldintzak, indar-gabe ezartu bearko duela esaten du.

Orduan, esan bearko dugu, gure artetik erriak aspaldi aizatu zuan «h» ori, zuk orain, indarkeriz ezarriaz berpiztu nai duzula.

Zure arrazoia, niretzat ez da eragikorra.

«Batasun-bide horren **kontrako agertzen zeran horrek,** beste **batasun-bide hobeagoa zor diguzu».**

Bejondeizula, gizon! Pertson jakintsu batek, serioki, orrelako gauzik esan lezakeala pentsatze utsak ere ba-ditu bere egitekoak... Orzlari batek egiten dizun aukordea gustokoa ez ba-duzu, «egizu zuk obea, edota zabiltz orzikusten dut nire idazkiak, axaletik, oso axaletik, irakurri zenitula. Nik ez nuan **zer** ori lenengo pertsonan idatzi, irugarrenean baizik. Ala ta guztiz ere, urrutixiegi juan zerala uste dut, guraso ez-jakiñei, ez-jakiñak dirala beste arrazoi gabe, berezko eskubide bat ukatzean. Ene uste au egiztatutzeko, ara zer dion «Declaración Universal de Derechos Humanos»'ko 26'garren arauak, 3'garren atalean: «Los padres tendrán derecho preferente a escoger el tipo de educación que habrá de darse a sus hijos». Ikusten duzunez, or ez da jakintsu ta ez-jakin itzik ezertarako aitatzen; gurasoena da eskubidea ta ez jakintsuena. Aski dugu!

Amaitzeko: Ez dizut, iñolaz ere, lotsagaldu izan nai: Ustekabe, ezertan utsegin badizut, asketsi.

ZALOÑA

Kezka nabaria

Euskaldunok iztillu ta buru-austerik naikoa darabilgu aspaldion. Azken urte bi oneetako gure aldizkariak lekuko. Ez dago asko begiratu bearrik, ezta aldizkari orrek sakon aztertu bearrik be, aurrean dugun arazo larri ori ikusteko. Kezka bat nabari da danetan: Gure indarrak batzea; batasuna.

Bear-bada ez da izango euskal-iztegian beste itz bat, «batasuna» baizen sarri entzun dogunik. Entzunaren entzunaz, ia iguin emoten asi jakun itza. Bere burua betetzen ez dauan itza. Gure artean bere esan-naia guzurtatzen dauan itza. Itz utsa. Oraingo euskal-abesti bat datorkit gogora: «Zebat gera? Lau bat... zer egin degu?... Zer egiten degu? Alkar jo... Gure asmoak: Erria, Askatasuna, Bakea, Egia, Maitasuna... Mitoak, Itz Utsak».

Danok elburu bat izan arren, emen gabiltz sartuta gagozen zurrunbillo ontatik urten eziñik. Jo-muga bardiña, baiña emen gabiltz zorabiaturik urratsik emon eziñik. Eta askoz txarrago dana, gure egoera au geroago ta geiago garraztuaz doa ta alkar aitu-ezin larri bat nagusitu da euskal-idazleen artean. Gaitzerdi idazleen artean bakarrik ba'litz, baiña idazleen burruka onek burrundada andiegia atera dau Erriak berak ere ez entzuteko. Gure asierako asmo ederrak danak pikutera joango ote jakuzan bildur naiz. Batasunaren izenean olako naasterik ez dogu ezagutu 30 urtetik gora ez gabiltzanok beintzat. Batasunaren izenean iñoiz bananduago ote gabiltzan nago. Gauzak onela, nora goazen, non amaitu bear dogun ez al dogu pentsau bear? Azaleko sasi-batasun batera eta barrutikako banakuntza larri batera, nik uste.

Gure artean, orain arte beintzat, jokabide onak naiz txarrak, erlijiñoaren izenean artzen izan dira sarri. Zergatik? Ordondo ikusia zalako. Erakundeak ofizialki katolikuak ziran eta gizartean gauzak «obeto joango ziran» norbera be katolikulez agertuta. Orretara, onak eta txarrak asmo zuzenak naiz okerrak, erlijiñoaren bapespean, itxura eder orren azpian ezkutatzen ziran... Batasunaren auzi ontan ez ote da gauza bera jazoten? «Batasun itzak ots goxoa ta lilluragarria dau gazteen entzumenerako batez ere. Itz onek gazteen biotzean eragin bizia egiten dau. Au dala-ta batzuk, iskillu (arma) bezela ez ote dabe erabiltzen, batasunaren izenean eurak nai dituen ideal zabaltzeko? «euren ideak» zabaltzeko naiz ta zabalkunde orrek euskerari bat ere onik ekarri ez? «Batasuna» itz eder orren babespean zer ezkutatzen dan argi ta garbi jakin bearrean gagoz euskaldunok. Egunerokoizparringien antzera, an irakurten dogu egia dan ala ez jakin barik irakurri bear al ditugu gure euskal aldizkariak ere? Euskaldunok beti illunpean bizi bear ote dogu alkarri egia garbi esaten ez dakigulako? Azpikeria ez da izan ba, gutxakatzik aundiena orain arte beintzat.

Batzuen iritziz, batasun-bidean zenbaitek orain artu dituen zuzenbideak ez dira onak. Euren iritziz euskera ori, orain asmatzen ari diran «euskerato» bat besterik ez da. Azkue, Orixe, Lizardi, Lauaxeta ta abar oiñarri le artuta politto - politto batasun - bidean ekin bear litzakio euskalkiak larregi iñausi bagarik eta iñori mesederik egiten ez dautsan «H» letra antzu ori baztertuaz.

Besteak berriz, liburu ortan eta bestezenbait tokitan azaldu dabe euren pensakseraren muiña. Azkue, Orixe ta abar oso gutxi edo bat ere ez ditue aitatzen Mitxelena Jauna euren gidari ta maisutzat. Egoera ontan, oraindiño ez dakigu Euskaltzaindiak zer esan dauan eta ze agindu dauan. Arantzazuko batzar ospetsu aretan egin zanak ba-dau indarrik al ez? Erabagirik artu zan ala ez? Galdera

Ara oneikaz beste sei argibide ta iritxi. Emen alegindu gara ixilpean lotutakoen esan-gureak agertzeko bideak zabaltzen. Onezkero ba-dogu nun ikasi. Gaurkoz, «bai baiña...» esaten dakienei onenbeste ezarri daikiegu: «Begiak izan ta ikusten ez; belarriak ondo ta entzun nai ez».

Ori zen, ain xuxen, «erremerio santua» idaztean adierazi nai nuena! Orra nun leen aldiz bat gatozen.

«Ez da aski, bainan premiazko da, batasunik gabe ez bait du iraungo, bizi geran oraingo eta biharko mundu honetan».

Euskotar guziok euskeraz mintzatuko ba' giña ere ez?

«Su conservación como lengua viva depende ante todo de la adhesión de la colectividad que la viene usando como medio de comunicación». (Diario Vasco»'n, Luis Mitxelena jaunak).

«Batasuna eginik ere, gal deiteke; batasunik egin gabe galdua dago aldez aurretik».

«Siempre es arriesgado predecir el futuro, y el de las lenguas no constituye ninguna excepción». (Diario Vasco»'n Luis Mitxelena jaunak).

Etorkizuna iragartzia arriskuzko bada, nola ausartu zera orain il-eskilak jotzen? Edo, ez al-da **beti** arriskuzko? Nik ez dakit; baiña, zuk ala esan zenuan.

«Eta hau ez da ene uste ustela, euskaldun anitzena baizik. Galda ezaiozu edozein hizkuntzalariri eta ikusiko dezu zer erantzungo dizun».

«¿Cuáles serían, a su juicio, (euskerak bizirik luzaro irauteko, alegia) las medidas más positivas y adecuadas para lograrlo?». («Diario Vasco»'ren galdera).

«Sin duda que el paso más importante sería introducir el vascuence en la escuela», (eta aurrerago:) «Por ejemplo, hay que pensar que parte del monumento histórico que es el vasco lo constituyen los dialectos. Habría que preparar difegabe!». Ez, Mitxelena jauna, ez. Orzlaria beartua dago, bai estetika ta bai mastikatze aldetik, bezeroa gustora uzten saiatzera, naiz ta orretarako, bi, lau edo amar proba bear ba-ditu ere.

Zure batasun-bide ori ez zait atsegin. Orregatik nago bere kontra. Nik obea egiteko? Ez dakit eta ezin egin. Arrautzak egiten ez dakidan bezela; baiña ala ere ba-dakit tortilla arrautz preskoekin egiña dagon edo ez ezagutzen. Ta, zer naizu, zarrekin egiña gustatzen ez zaidalako, preskoak egiteko ollo biurtzea?

«Ez baduzu hoberik eskaintzeko, bazoazke zure bidetik».

Ori da egin nai dutana. Beste aldetik, ordea, orixe batzun-batzuk nai ez dutena.

Oberik egiten ez dan bitartean, bide zaarrak dauka berezko leentasuna. Eta arrazoi orregatik galdetzen nuan, nori ta zer aginpiderekin bururatu zitzaion, «eskuairez egindako izkelki naasketa» ikastoletan ezartzea.

Saia zaite, orzlaria probak egiten bezela, urratska-urratska erri geienaren gustoko bat billatu arte.

«Nik agerian diodana ixilpean gorde nahi luke berak, soil-soilik, ikusten bait du adin-hauzia dugula oinharriz gurea».

Bigarren aldiz, barkatu, baiñan, adin-auzi ori, ba-liteke zurea izatea, ez nerea. Gazteak eta gazteagoak ditut eguneroko txolarte-lagunak. Adinak ez gaitu banatzen.

Iñorekin izan dezaketen zer, ziur egon, politika-auzikoa dela. Eta emen bai argi dagola, ondo ezagutu arren, aitortu nai ez duzun zeako zeen zea.

«Ez jakin arrunta baldin bada, nondik ote du eskubidea irakasleei zer **irakatsi behar duten agintzeko nahiz debekatzeko?».** Barkazio eske natorkizu, irugarren aldiz. Argi

onei **noiz emon bear jake siñespide izateko segurantza apur batekin erantzun argi bat? Naita-naiezkoa dala uste dot, gaztedia propagandarik geien egiten dauan bidera itsu-itsuan joan ez dedin; buruzagi baten atzetik artaldekeri baten jausi ez gaitezan.**

BARAIAZARRA'TAR LUIS

ERRI XEA

Ugalde'tar Martin akullulari. Euskera beia. Gaixoak antzu ez baiñan esne gutxi. Akullulariak jo du sendagilleen billa eta ortxe datorkigu izkuntzalariaz, edestilariaz, teknikoaz eta nik aal dakit zenbat abarrez. «H» dalako ori itzulipurdikatu eta astindu dute. Entzun ditugu amaika esan eta aolku, baiñan «H»k, utsaren baliokoa danez, ez du erraperik bete arazten. Eta egia esan, «H» orretaz orrenbeste mintzoaz aspertzen asiak gaude. Bestelako aurrerapen izango genuan zegoan tokian lasai utzi izan bagenuan, eta beste zerbaitetan saia.

Edozein izkuntza teknikoen bearrean arkitzen da, gu ez gutxiago. Baiñan izkuntz batek bizi aal izateko teknikoez gaiñera erriarekin konta bear du. Erriak osatu baidu izkuntza, Alatsu euskera. Eta, Ugalde jaunari ontan ateratzen diot akats, erri xearen balioaz bere galdekizunetan aazturik dabillelakotz.

Gai onetan zapokeri geiegi darabilkigu gure artean, beti ziploka. «Azpilana» itza maiz. aitatzen da. Baiñan Euskaltzaindia barruan ez gabiltzanok «argitan» bazebiltzala Euskaltzaindiaren aparte «H» aldeko batzarrak egiten, nabaitu genuan. «H» maite ez dutenek ez ote zezazketean ixilka egin «H» aurkako batzar-preparatorioak? Zergatik ez egin bere babesean mugimendu guziak? Etxeko argitasunean kanpokoei ikasbide emateko? Gero ez da naikoa Euskaltzaindiaren autoridadea aitatzea. Euskaltzain ez dan batek au gogoratu bearra ere...

Bai, otsegin zidaten agiriko idazle batzarretara, ain zuzen Ermuara eta Arantzazura. Erantzun ere ekonomiak galerazten ninduala. Alaz ere azken onetara igorri nituan «H» zergatik maite ez nuan arrazoiak.

Illabeteetara euskaltzain jaun batek, onelatsu: «Zure idazkia irakurri ta maxiatu zan Aldeko eta aurkako lanak argitaratzeko asmoa dugu. Arren, kopirik baldin baduzu bidali, galdu egin baigenun bestea». Igorri ere bai.

Liburuan ez zan agertu nererik. Eta kopirik ez, baiñan zeredozer gogoratzen naiz. Eta Ugalde jaunak langilleekin, beartsuekin itzegin ez badu, eta goian diotan bezela beartsuak ere auzi onetan zer-ikusirik baldin badugu, ez arritu bearkizun bat bezela jotzea emen arrazoi aietako batzuek berritzea. Langille bezela egiñikako arrazoiak. Eta orain Ugalde jaunak osatutako elkarrizketen ondoren lenaz gaiñera sendotutako arrazoiak. Onela irakurri baidugu:

Akesolok: «H artu arren ez dugu batasunik egiten. H au guk ez dugu esaten, mugaz auzkoak bai. Begietarako or egongo da, baiñan belarrietarako ez».

Ugaldek: «Halaxe da. Nere ustez H onek tekmika aldetik ez dio euskerari, izkuntza bezela, erraztasunik emango».

Labayenek: «Batasuna, bai! baiñan «atxerik» gabeko batasuna askozaz errezagoa dala ez dezake iñork uka».

Etxaidek: «Bidasoaz honuzko jendegiroa H'ren kontra baldin badago erabat... minoria batek ez dugula eskubiderik letra hori herrigiroaren gogoz kontra sartzeko».

Askok: «Ni neu ez naiz H zale, baiño...» Eta abar.

Zertan ari gera orduan? «Atxekin» batasunik egiten ez badugu, itxuretako bakarrik baldin ba da, euskera zailtzen badu errextu bearrean, ez gabiltz alperrik orrenbeste denbora galtzen!

Orduan, zer? Bestaldeko anaiei «plazer» emateagatik bakarrik al gabiltz? Itxuretako? Ori al da aurrerapena, progresoa?

Aurrerapena, Arana Goirik eman ziguna, alperrikako letra guziak ken. Ortografi errexena sortu. Aurrerapena da, errextasun onen billa dabiltzanean nazio askotan, erriaren onerako. Zailletik errexagora joatea progresoa.

Atzerapena da errextasun au daukanak zailtasunera joan nai izatea.

Zenbat urte edo illabeteak galduko dituzte gure aurtxoak H nun jarri bear dan ikasten eta andereñoak irakasten? Gurasoak zenbat dirua gal? Eta umetxoak zenbat geiago ez ote luteke ikasiko pronunziatzen ez dan letra bat nun jarri ikasi bearrean beste ikaskizunetan jardungo balira? Aldi orretan zer ez ote ikasiko?

Langille bəartsu, erri-xearen ekonomia ez dago orren ongi ornitua alperrikakoak ikasten jarduteko. «Beka» baten billa ibili oi gera... ara or «beka» bat geok zaputzua.

«Langillekumeak ortografia ikasten duanerako lanera. Aberatskumea ikasketan aurrera. Dirudunaren aurrerapena». —Onelatsu nion Euskaltzaindiari—.

Zenbatez aurreratuagoa ez ote legoke munduko langillea, beren nazioetan ortografi praktikoagoa baluteke? Ba emen, ori daukagularik, atzera naiean gabiltz. Ene! zenbaitzuek au asmatu izan bazuten entzun bearko zituzten onelako zerbaitzuk: «Kapitalismoak asmatu du H ori langille familiak ondatzeko, diruz eta jakinduriaz».

Izan gaitezen praktikoak. Ez dezagula aruntzkoei «plazer» emateagatik bakarrik jardun. Eta «plazer» au da arrazoi bakarra. Batasuna danok nai dugu. Ortografiaren praktikotasuna gurekin dugu, eta baita ere ango batentzat emen amar gaituzute. Frantziko erderaren ortografia errexteko mugimendua asia omen dago. Zergatik ez berak bide onetatik jarraitu? Eta zergatik ez euskeran H ken? Baiñan «atxekin» jarrai nai dutela? Ongi da. Atxerik gabe idatzi eta orain arte bezela «au» «jau» edo pronunziatzen dutela? Obetogo oraindik. Frantzezkeria iduritzen bazaigu ere, baita orain arte bezela jarrai dezakete «zakurra» bearrian «zakuja» edo esaten. Guk ez diogu erantsi kiyo ori... Dabiltzala euren naiera.

Baiñan guzion euskerarentzat billatu dezagun errextasuna, erosotasuna eta praktikotasuna. Eskaera auxe egin nion Euskaltzaindiari aitatutako eskutitzan, gaur berritu ere bai. «Plazerak» utzi, praktikoak izan. H'ren urte beteko proba nabaitu ondoren nere iritzietan geiago sendotzen bai-nazute. Auxen da ere, amaitzeko, Ugalde jauna, aazte zeran erri xeeko langille baten iritzi eta eskabide. Ausi onetan erri xea ere zerbait esan bearrean arkitzen dalako, nere ustez, dijoakizu apal au. Barkatu zerbaitetan uts-egin badut. Luzeegi jardun naizelako ere.

Eta Jaunak dagigula grazi arazo txepel onetaz betirako aaztutzeko.

«UXOLA»

Zentzuz joka dezagun

H'ren inguruko eztabaidatan murgilduak gaude egunotan. Aita Plazido Muxika'k, bere iztegiaren itzaurrean eta Arantzazuko Billeratan garbi azaldu zuan bere iritzia gai ontaz. Berriro ere, gure eskeari erantzunaz, onoko itz auen bidez erantzun digu:

«*—Lengo mendeetan itz bat nola esaten eta idazten zan gogoratuz, Beti Atzera Bakarrik Begira egon bear al degu?*»

«*—Orren ordez edo azkoz geiago beintzat begiratu bear genioke Euskeraren Gaurko Egoerari, eta gure euskera maitea bizkortzeko Geiago Lagunduko Digun Erreztasunari. Eragozpideak ipiñi bearrean, errazpideak asmatu ta aukeratu bear ditugu*».

«*—Euskera naiz zazpi euskalkitan, naiz amazazpitan banatua egon, Euskalerrian bizi geran guziok (bakoitzak bere euskalkian Bakarrik izanda ere) euskeraz beintzat jakin eta egingo bagenu: egoera ortan, Euskera Batu'rako euskalki au edo bestea (emengoa edo beste aldekoa) aukeratzeak ez lioke euskerari, onek orain daukan il-arriskua ekarriko. Il-arriskuan dagona oeratu baiño len, ondoreak aurretik ondo aztertu ta neurtu bear dira. Euskeraz egiten degunok % 20 (eunetik ogei) ba otegera? Eta egoera negargarri ontan egin nai diran aldaketak, gure errietan nolako ondoreak ekarri ta ekarriko dituzten: ondo igarri al dituzte, euskera erreztu bearrean, gero ta zaillago biurtu nai dutenek? Gure errietan sortu duten naspilla ta nazka, Ondore Ona dala uste al dute?*»

«*—Euskeraren Gaurko Egoerak auxe erakusten digu:*»

«*...Gaurko liburu geienak gipuzkeraz idazten dira;*

«*...Gipuzkeraz egindako liburuak saltzen dira geienik;*

«*...Gipuzkoarrak dira euskel-idazle geienak;*

«*...Gipuzkera'ren alde zeuden Azkue, A. Madariaga, Garitaonandia, Belaustegigoitia (laurak bizkaitarrak), A. Olabide (arabarra) Campion, naparra zan eta Broussain lapurtarra, eta ona emen zer dioten euskaltzale ospatsu oiek: «...si paramos mientes en las propiedades de la difusibilidad, el platillo cae del lado del guipuzcoano*».

(Ikus EUSKERA 1.922,9'*gn.orr.)*».

«*...Gipuzkoarrak dira euskal-idazle geienak;*

«*...Erdi-aldean dagolako..., eta beste euskalkiak baiño errezago ulertzen dalako-edo, gipuzkerak aukera ta abantail obeak erakusten dizkigu Euskera Batu'rako.*

—Ortaz, gipuzkerari eutsiaz, edo gipuzkera oiñarri bezela artuaz, eta onen inguruko euskalkien bidez osatuaz, lortu bear genuke, nere ustez, Euskera Batua.

—Idazle geienak (bai Gipuzkoan, baita Bizkaian eta Naparroan ere) zorioneko edo zoritxarreko, H ori ez dute erabilli gure mende ontan...

—Euskalerri osoan H ori oguzten ez dutenak, sei dira gutxienez bat'en kontra.

—Hiato dalako ori ordea zer da? Ona emen erderazko iztegiak diona:

—Merezi dun baiño garrantzi geiago eman zaio H'ri dagokion auzi oni.

—Auzi ontan joka dezagun, erreztasunak, eta demokraziak ere eskatzen diguten erara.

—H dalako ori gure artean sartzea, geienen aurka jokatzea izango litzake; eta Geienen Kalterako Dana, Ezin Diteke Euskeraren Onerako Izan.

—H'zaleak len PH, TH e.a. (adibidez: philosophia, orthographia, e.a.) sartu nai zizkiguten; ontan ordea, Jaunari eskerrak, atzera egin dute. H guziak zearo kenduko balira, askoz obe!!!

—Itzaren jatorriari baiño geiago begiratu bear diogu Erreztasunari; eta, geienok uste degunez, Euskeraren Bizirako askoz egokiago ta errezago baldin ba-da, uxa ditzagun bein betirako H guziak...

—Italiarrak Eresia, Eresiarca, Idraulica e.a. H'rik gabe idazten dituzte, eta (ez aztu, gero!!!) Italiera ere kultur-izkuntza da!!!

—Guk ere olaxe: ipotesi, eresiarka, idraulika, eresia, e.a. H'rik gabe idatzi bear genituzke.

—Beste izkuntza batzutan nekez eta gogoz-kontra daramaten zama ori, ez dezaiogun bizkarreratu gure erriari...

—H'rik gabe idazten degu euskel-idazle geienok eta, latiñezko esaerak dionez: Melior est condicio possidentis.

—H guziak baztertzeak, italiarrei bezela, gure ume gaixoei ta baita euskaldun guzioi ere erreztasun aundia emango liguke... eta abantail zoragarri ori ez genuke alperrik galdu bear.

—Euskeraren bizirako eragozpide diranak utzi, eta errezpide diranak aukeratu egin bear ditugu.

—H'ri dagokion auzi onek gaiñera eztu garrantzi aundirik; gure batasunerako ezur gogorragoak dira euskel-aditza ta be'te auzi batzuk...

Iiz batek bi esan-nai ditunean, bata besteagandik bereizteko, bata H'rik gabe eta bestea H'rekin idazten baditugu: nola bereiziko genituzke iru, lau esannai edo geiago ere dituztenean? Bi, iru, lau H idatziaz? Eta olako itzak, ots: iru edo lau esan-nai ta geiago ere dituztenak, ez dira ain guxti euskeran, ezta beste izkuntzetan ere. Ori zure begiz ikusteko, edozein iztegi aundi ar zazu, ta edozein aldetatik zabaldu!!!

—Euskeltzaindiak bere aldizkarian (Ikus EUSKERA, 1954 - *urria,* 27'*gn. orrialdean) ona emen zer adi-erazten digun:*

ALGUNOS ACUERDOS DE LA ACADEMIA VASCA

—También se ha acordado aceptar como forma académica en los dialectos meridionales, el signo H, aún no correspondiendo a pronunciación aspirada en determinados casos de evitación del hiato de vocales, como ohore, ahate, zuhurra, etc...; o en algún caso de diferenciación semántica como ori-hori, ura-hura, ari-ahari, etc...; siendo naturalmente correcto el no uso de dicho signo H. *(azpiko marra nik ipiñi det.).*

«Hiato: Cacofonía que resulta del encuentro de vocales en la pronunciación.

Cacofonia dalako ori, beraz, oguztean dago, ez idaztean. Ontaz, H idatzi baiña oguzten ez ba-degu, hiato edo cacofonia ori ez da kentzen; eta kentzen ezpada, alperrik da H'rekin idaztea.

—Gauza batzuetan (adibidez: illen izenak aukeratzen, oitura zabalduenari aurrea ematen diote... Eta H'rik gabe idaztea, ez al zan euskaldunen artean oitura zabalduena? Bi neurri erabiltzen dituzte. Aldi bakoitzean nai dutena, ez ordea egokiena.

—Ikus gaiñera nere Iztegiaren Itzaurrean gai ontaz idatzi nuana».

Gero, gai ontaz idatzi diran lan asko nun dauden, beste orri batean ipintzen dizkigu, idazti, aldizkari ta beste idazlanak zerrendan jarriaz. Guzia bere izenpea azpian jarrita dator:

PL. MUXIKA, S. J.

(Etxaniz-tar Nemesiok batua)

Aukeratzea, nola?

Asteroko euskal izparringietan, batasuna dala-ta, besterik ez degu aspaldi ontan irakurtzen. Len kaleko kontua zan, euskel asteroko ta illerokorik ez gendunian. Orain, kaleko berriketak, izpar orrietan irakurtzen ditugu. Eztabaida ontan, nundik dagon bidelasterrik, ez da errez asmatuko.

Euskalzaindia zer da? Euskalzaindikoak nortzuk dira? Euskaltzaindikoak, nork aukeratzen ditu? Emen Gipuzkoan, bertan batzen diranak noski. Nik ordea, aukeratze oneri ez diot begi onakin begiratzen. Zergatik? Talde oiek bakarrik ez daukatelako beste millaka euskaldunen baimenik. Euskeraren aldeko gauzak garrantzi aundiagokoak diralako. Nola artu orduan olako ta alako erabakiak? Ez beintzat, dalako ta betiko minori orren, naiz ta gazte berri edo ta zarragoak, beren buru txoroen antzeko daudenak, edo... nik aldakit zeintzuri erru eman.

Irakurgai batzuk naskatu ere egin naute. Batek dionari, buru izenez «Batasuna, erriak du itza», erantzungo diot: batasuna ez dagola batzuen gain, euskaldun guzien gain baizik. Zertan nai dezu batu, politikaz ala itz eta idatziaz? Nola, batzuk batera eta bestiak bestera idatziaz? Dalako «h» orrekin izparringi erdia idatzita eta beste erdia «h» gabe? Ortan ez dago batzerik. Guziak batera idatzi bear genuke. Ortako urte askotxo dira h-gabe idazten deguna. Orain, zergatik asi da talde ori «h»-kin idazten? Zergatik, talde oiek, ez dute ateratzen beren asterokoa eta ez nastu orain arte idazten gendun asteroko edo illerokoak? Bai, ulertu berdintsu egiten degu, naiz ta naskatu bien bitartean. Erabakiak artu bear dira. Erabaki oiek garrantzi aundikoak diranez, bein da betiko ontzat artu bear dira.

Politikoan ostea... obe deuzik ere ez aitatzia. Gaxotasun ori kentzeko, bide latzak igaro ziran, eta igaroko dira oraindik. Bakoitzaren ideari jaramon egin nai badiogu, utzi politika eta idatzi euskeraren alde. Alperrik ebiliko gera gai ontan batasunaren billa. Bakoitzaren sinismen edo ideari errezpetorik artzen ez bada, gureak egin dik. Ortako ordea, demokratak gera gu. Demokrazia, ez da elkar joka ebiltzea, bakoitzaren arrazoia dala ta bestiena ez agerturik. Ortako onena, ta garbiena, nere ustez, mayoriak agindu eta minoriyak ixildu egin bear du.

Artu dezagun aintzakotzat AGUR onen asiera, «h» gabekoa. Berdin artu du erabakia Goiz Argi illerokoak. Zergaitik ez besteak. Ezinleike bi eretan idatzi batian bañon.

Beste idazlan batian dio «Nun bizi gera»? Nun bizi geran...? Emen, Euskalerrian noski. Etxaniz'tar Nemesi idazlari yayo ta jatorrak dionez, azkenengo Euskaltzaindiko batzarran, mayoriak artu omen zun erabakia, alegia gure ain begiko dan Lekuona jauna botatzia. Astakeri aundiagorik nai aldezute? Gorako esaten detan bezela, zeintzuk dira orren errax artzeko, olako garrantzi aundiko erabakiak? Talde orrek, edo gazte-zar oiek? Eta, nun gera beste gañontzeko euskaldunak? Gu ez algera ezer? Gure iritziak ez aldu balio? Zergatik ez da guzien naia betetzen, eta ez, talde oiena bakarrik? Euskaltzaindia talde txikia da, gañontzeko millakan iritziak konparatzeko. Zergatik orduan, ez da antolatzen guzien borondatea jakitea, ta errextasuna eman, bakoitzari bere txartela botatzeko? Ortarako, zuzendu, nun eta nola bota bakoitzaren borondate ori ta, ez milla bider, Euskaltzaindiko talde orren erabakiari jaramon egin, edo aintzakotzat artu. Betikoak izan bear ote dute ba, talde oiek? Zergaitik ez da urtero aldatzen talde ori? Lendakaritza ostea, aukeratu leike bi edo iru urteko.

Ez jaunak, ez, milla bider esango nuke nik. Bide latza da ori, talde orrek, bestien borondatea eta naiak, betetzeko ta agintzeko. Oiek ez dute millakaren gogorik errepresentatzen, eta naiak gutxiago.

Martin Ugalde jauna urte askotan ezagutu nuan an Caracas urian. Arrituta gelditu nintzan bere idazlanak irakurtzian. Naiz-ta asieran «h», gabe idatzi, berealan asi zan «h»-kin idazten. Nik berari bi eskutitz idatzi nizkion. Orratiokan bigarrenari erantzun ziran. Guzia, «h» dalako orretaz zan. Onek dionez, bera periodista dala beste erremeyorik ez daukala, ta aintzakotzat artu «h» ori. Nik, galdetzen diot oneri: Zergatik? Periodistak, orain orrela idazten astia, uste aldezu zuk, bide egokiena dala?

Zu Andoaingo semea zera. Giputza noski. Giputzak orain arte ez degu «h» rik erabili idazten. Orain, zergatik? Ez uste izan zuek jakinduri aundiagokoak zeratenik. Besteak ere, bai dakite idazten, eta beren iritziak ematen. Mayoriari jaramon egin bear da, eta ez zuek, jokatzen dezuten bezela, «h» sartu nai ori, ainbeste urtetako oitura bastertuaz Gipuzkoan.

Ez jaunak, ez. Ez goaz ongi bide ortatik. Batasuna ezin da ortan lortu. Batasuna lortzeko, guziak batera idatzi bear degu, eta ez batekoz bestera. Euskaldunak ez diranak parre egiten dute.

Bai, Etxaniz jaunak, ederki ta arrazoi aundiz esaten du Argia'n: «Zergatik ori edo ura edo dalako ura jarri dezu Argia'n, etzan komeni...»

Orain ostea, askenengo Euskaltzaindiko artuemanetako berriak, guziak jarri edo idatzi... Ostikoa nola eman zioten Lekuona jaunari.

Zer gera gu, euskaldunok, demokratistak? Progamak onak izaten dira, bete egin bear ordea, zuzen eta garbi. Ez zapustu, ostu, edo giltzapean sartu... Olako ez bearrak aspaldi ikusi ta bizkarrean eraman ginduzan, orain gertakizun ustel oiek aintzakotzat artu gabe. Gauz askorekin gertatzen dana ori da. Zuri ezpadizu ezer kentzen, ezpadezu sufritu ezer, ezpadizu ezer ostu, kendu edo zauritu... orduan oiek oso gizon jatorrak dira. Ikusi egin bear ordea, zuri ere beste oien ezbear guziak gaiñeratze bazaizkizu!

Ontan bizi gera. Ontan ilko gera. Beti alkarmuturka. Beti alkar-gorrotoz beteak. Beti bestien bekaitzez. Bestien naigaberik neri ez'pazait gertatu... Orkonpon.

BATASUNA. ZE IZEN EDER ETA EGOKIA!

Ta ze Gaizki Erabilia!

OZKIN

Jarrai ernai, ta edozelako irugarren asmodun zurikeriak argitara ekarriko doguz. Neurrian baiña, ez gagizan etsaien ziriketakaz garrantzizko egikizunetatik bestateratu. Orra or gure aolkua: Barrikeririk sortzen ez dauskuen artean, moztu dagiguzan gai oneik, eta ekin aurreruntz.

IDAZTI BARRIAK

«PERU ABARKA», Mogel'ek idatziriko idazti bikañaren argitaldi berria

Liburu au, Mitxelena'ren eretxiz, oso atsegiña da, euskal-elertiari buruz.

* * *

Juan Antonio Mogel'en PERU ABARKA. Elebian argitaldua; Gortazar josulagunak gazteleratua. Juan San Martin, Euskaltzaindiko idazkariaren itz-aurrea daroa. Idazti au, Eukal-Elertiaren pitxirik onenetarikoa dozue. Bai idazkeraz ta bai mamiñez. Unamuno'ren eretxiz berdinbakoa.

«Urtetxoak dira —esan eban Arana Goiri'tar Sabin-ek— PERU ABARKA'ren idaztia daukodala, ta sarritan irakurri ta atsegindu naz beragaz. Idazle ona izan gendun Mogel; itz-lauz onenetarikoa nere ustez».

Aita Villasante'k, gaur Euskaltzaindiko lendakari danak, auxe idatzia dau: «Ezpairik gabe, PERU ABARKA, euskal-elertiaren idaztirik gorengoena da; errez ta atsegiñez irakurten dana. Luis Vives'ek latinez idatziriko alkarrizketak irakurriz sortu jakon idazti ori egiteko asmoa. Onek ez dau esan gura, Mogel'ek iturri artatik edan ebanik, ezta be, PERU ABARKA, Vives'ek egindako alkar-izketan antzekoa danik. Garbi dago; Mogel'en lana jatorra da; ez dau beste iturririk, euskalbizitza soillik. XVIII'garren mendearen azkenetan Bizkaian egiten zan bizitza dau euskarri. Euskaldun oso-osoaren esakerak, aseleak, zirikadak, burpilla ta saltzea daroaz. Orrela izanik, Mogel'en bitartez ikus daroagu, baserritarra dogula irakasle ta jakintsu euskalarloan, ta oneikandik ikasi bearra dogula. Besteak, gizon ikastunak, lizuntzaille dozuz, ta ikastekotan, Peru baserritarraren ikasle izanik ikasi daikie».

«Idazti au —diño Irakasle ta Euskaltzain dan Mitxelena jaunak— esukalelertian ez-eze, jakite-arauz gorengoa da; aro artako oitura ta izkuntza aundikiro darabiltzalako. Ola zarretzaz diñoana, Larramendirena bezin errikoia dozu. Alkar-izketaren aldetik, euskerazko ele-ederraren lenengo saioa dirudi. Egun batez, edaritegi baten, bizarkentzallearekin topo egin eban, eta onek, Peru' gandik, «Basarteko Euskal-Irakaslea-gandik», asko ikasi bearra eukola esan eutson; bai ganoraz itz-egiten ta uri-nausietatik urrun bizi diranen bizitza ta langintza ezagutzen. Baita be, gipuzkotar ta Bidasoaz andikoeri bizkaitarreri aiña begiramen izatea, geu lez euskaldun diralako. Orrez gane, gizonki ta kistar bezela jokatu bear gintzazala beti.

J. M. Lojendiok diñoanez, Peru, euskokontaera bat da, baiña euskaldun utsarena, ziurrarena. Aintziñako birtuteen erabidez izkuntzaren gorde-lekurik onena basetxeetan egoala jakiña da. Mogel ez zan urten Euskalerriko mugetatik, berak alan nai izan ebalako; baiña errez igarten da urrunago joan nai izan ebala».

* * *

Liburu errikoi au, 150 laurleko.

45 IDAZTI

ESPAÑI'KO OLERKARIAK EUSKERAZ

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANGEL

Bere 45'gn idaztia au, il onetan argitaratu dausku Juan Angel neka-eziñak. Berrogeitabost eta ez edozelakoak, zein baiño zein ikusgarri ta irakurgarriagoa. Ta onenbestera eldu danez, bere lanari aipamen labur bat emotea bearrezkoa dala uste dogu.

Olerkia dabela muiñean laster igarriko dautsazu, ez da baiña au lan ugari orren igali gozo bakarra. Iru ataletan banandu daikegu Juan Angel'ek egiña, iru asmo ta iru giro: Jakintsuentzakoa, griegoz eta latiñez jabetuentzakoa, irakur Phedro'ren alegiak iru aletan edo Esopo'renak, baita Augustin deunaren eskutitzak... Guk AGUR'en, euskaldunak, zarrak eta barriak, irakurle biurtzen alegintzen garala, beste oneik doguz begietan: «Apuntes de Vascuence» eta umeentzako ipuñak, Andersen eta Perrault'enak. Gaur ikastolak doguz gure ames, orra Etxebarria'ren lanak, aur eta andeñeroentzat egoki eta merke.

AIXOLA

ADITZA BIZKAIERAZ

120 orrialde daroazan idazti polit ederra egin dausku Pujana'tar Kepak, gaur Morgan daukagun jaupari langille ta euskeldun jatorrak. EUSKAL ADITZA BIZKAIERA daroa izenburutzat.

Idazti orretzaz guk esango gendukena baiño tajuzkoagoa izango dalakoan, jaso dagigun, egilleak itzaurrean diñoana:

«Bizkaierazko aditz-jokoak dakartsuz liburutxu onek. Aditza, izan be, izkuntzaren ardatza da. Ezin daikezu euskera menderatu aditza oker edo nekez badarabilzu. Ezin!

Ara! Aditza ez dago ondo-ondo Bizkaian. Ez, ez! «Ezautu daust» (nau), «ikusi dautsat» (dot) eta onango esakuntza ganorabakoak eurrez entzuten doguz. Aundien artean be bai. «Alkate egin dauste», iñostan oraintsu gizon batek. «Egin nabe» esan baleust, ederto.

Bai, bai! Aditza galtzen doakigu. Apurka-apurka zarpiltzen, ondatzen. Aizerakada au, barriz —nok ukatu lei?—, galera aundia izan euskerarentzat.

Agirian itzegin bear dabenentzat zein idazleentzat eta abar, aditza garrantzizkoa dogu. Euskera ikasten ekin eta ekin diarduen taldeak be ba dira geure errietan. Ba da, beraz, onango liburutxu baten premiñarik. Edozeñen eskuetara joan daiteken eta adiz-erak batera ta alik argiroen dakazan baten bearrik. Utsune orren betegarria izan leiteke nire lantxu urri au. Gura daben guztientzat ikasbide ta lanbide izan daiten.

Batasunera ete goaz, gero? Norbaiti bere kautan sortu dakikeon itauna. Zertarako, bada, euskalki bakar baten aditza darakuskun liburuxka? Bai, euskeraren batasuna bearrezko dogu. Betorkigu lenbailen. Baiña norberaren izkera ondotxo ikastea, ez ete da batasunaren alde jokatzea? Arlo onetan lenengo-lenengo egin bear geunkena, ez ete da orixe berori? Etxean zer daukagun jakin ez-da, auzokoagaz zelan alkartu ta bat egin? Bizkaiera indartuaz euskera indartuko litzateke, nik uste.

Areago: bizkaierak oraindik bizi-bizi dirau an da emen. Ta bizkaiera bizi dan artean, bizkaieraz egin bear erriari. Zelan, baiña, ganoraz idatzi ta berba egin aditza egoki erabilli bagarik?

Zukako aditz jokoak bakarrik daukazuz emen. Ikako berbetea be ederra ta aberatsa da. Bai orixe! Alan da guzti be, era bietako aditz-jokoak aitatzea lartxo zan niretzat. Egikizun orren beste neurri bateko liburua eskatzen eustan, ots, zabalagoa, sakonagoa, korapillotsuagoa. Ta egia esan, orretarako ez dot nik gaitasunik, ez almenik. Gelditu bedi ni baiño ikasiago ta jakitunago danarentzat.

Aditz-jokoak ez dira nik asmautakoak. Bat esan da bera be ez! Erria, idazleak eta maixu jakintsu diranak izan dodaz irakasle. Gaur-gaur darabilguz gure artean. Bat edo beste kendu ezkero beintzat.

Lantxo uts au ongarri izan daitela euskerarentzat. Eusgarri ta indargarri izan dakiola. Ez dot orixe beste saririk opa».

Izki argiz, txukunkiro irarrita daukozu idazti bikain au. Erosi gura dabenak, «Distribuidora San Miguel»'en aurkituko dau. Torre kalean, 3'gn zenbakian, lenengo etxoiñean. Baita be, liburutegietan. Salneurria, 125 laurleko.

Erosi; etxatzu damutuko.

MANU

Aurki «Euskal-Antropolojiaren erriarteko lenengo astea» ren liburua agertuko da

Bilbo'ko Academia de Ciencias Medicas'en sortzetik 75'garren urtea beteten zalako, ta Deusto'ko ta Bilbo'ko Ikastola Nagusien laguntzagaz, Bazkun arek berak antolatuta, joan dan Jorraillaren seitik amaikara bitartean, Bizkai'ko Aldundian ospatu zan Euskal-antropolojiaren Lenengo Astea, Erki onetako eta Bilbo Uriburuko Batzarren babespean.

Gogoan izango dozue, Antolatzaille Batzordeak, Aita Diaz de Acebedo, S. I., jaun Adrian Celaya, j. Carlos Gonzalez Echegaray, j. Andres E. de Mañaricua, j. J. Manuel de Gandarias, j. Justo Mañas, j. Juan Viar Bayo, j. Angel Arrien, j. Pedro de Barturen eta j. José Luis Goti'k osotzen ebela, Lenengo Aste orretako itzaldi eta mezuak argitalzeko agindua «La Gran Enciclopedia Vasca» argitatzailleari emon dautsoela, ta ara zeintzuk diran:

Kondaira aurreko euskal-gizona ta bere gaurko egozpena.—Jose Maria Basabe'k egiña.

Odolezko agerpenen izatea gure errian.—Au, Jose Luis Goti Iturriaga'rena.

Sikolugu arazoak, gizartekoak eta legezkoak, Euskal-Erriko sorginkeari buruz.—Julio Caro Baroja'rena.

Euskotarren pentsaera ta arpegikera.—Jose Manuel Barandiaran'ena.

Euskal-Sikologiaren bidez, Bertsolarien argitasuna.—Manuel Lekuona'rena.

Euskal-abestien morfologi ta berezitasuna.—Francisco Escudero.

Gure Erriak legeari buruz daukan zentzuna.—Adrian Celaya'rena.

Kondairako mende bitan, euskotarrei begira.—Andres E. de Mañarikua'rena.

Izkuntza ta Kultura.—Luis Mitxelena'rena.

Euskaldunen Arri-aro ta Erdi-aroatzaz gogoketa.—Ignacio Barandiaran'ek egiña.

Bilbotar eta Bizkaitarren arteko betiko bekaitza.—Manuel Basas'ena.

Legen-eria, Euskal-Erriko erromatarren artean.—Juan Maria Apellaniz'ena.

Euskal-arrantzaleak Terranovan, XIII'garren aroan.—Vicente Palacio Atard'ena.

Euskal-Errian geure arteko artu-emona.—Miguel Angel Astiz'ena.

Aurretikako ikasiak eskualde baten.—Leopoldo Zugaza'rena.

Aintziñako Bizkai-euskalkiatzaz dakiguna.—Alfonso Irigoyen'ena.

Martínez de Landecho bizkaitarraren nortasuna, Guatemala'ko lendakari bezela.—Carmelo Saez de Santamaria, S. I.'rena.

Gipuzkoako mendi-gunetan, adarduntzarrak.—Jesus Altuna'rena.

Euskal-erti errikoiatzaz gogapenak.—Luis Pedro Peña Santiago'rena.

Euskalduna kiroletan.—Fernando Maria Mugica'rena.

Sorginkerizko erabideak, gaurko kistar-egiñetan.—Angel Irigaray'rena.

Artzai-bizitzaren zertzeladak eta larre-aldaketak Euskal Errian.—Fermin Leizaola'rena.

Kell eta Duffy odol-agermenak euskotarragan.—Jesus Moya'rena.

Euskal-Erriko Arri-aro ta Erdi-aro aurretiko barriak: Naparruako Urbasa ta Olazagutiako meatzak.—Enrique Vallespi'rena.

Idazti onen aurkezpena Goti Iturriaga sendagillearen ardurapean da.

Lan bakoitzaren amaieran, itzulpen-laburketak izango dira, euzkeraz, gaztelaraz, prantzeraz, ingelanderaz, alemaneraz, errusieraz eta japoneraz. Idazti garrantzitsu onek, euskeltzale guztien artean arrera ona izango dabela, ziur gagoz.

JAZKERA BARRI ETA GALTZETORRATZEKOAK

Guerricabeitia

Artecalle, 32 ◆ BILBAO-5 ◆ Urrut. 21 65 67

Kendu bustitasunak zure ormaetatik!

...ETA BIDE BATEZ, ZURAGAZ, GAI-BIKAÑEZ EDERTUKO DOZUZ OSO MERKE, PAPEL ON BATEN SALNEURRIAZ

Orra emen «ZURAK» deritxon gai orrek daroazan bereiztasunak:

1'go.—Gai ederretarikoa dozu; zeuk nai zenduken erakoa (enbero, limoncillo, spelly, mongay, areitz naiz intxaur).
2'n. — Otz eta beroagandik gordeko zaitu.
3'n. — Kanpoko zaratetatik be bai.
4'n. — Ezetasun ta urdintasun guztietatik aske egongo zara.
5'n. — Etxe barruan barriz, entzumen giro bikaiña izango dozu.
6'n. — Otz-beroari buruz, tximizt-indarretan diru asko aurreratuko.
7'n. — Senditarteko algararik, ez bazkunetakorik ez da entzungo kanpotik.
8'n. — Beti, barri-barri irauten dau. Sitsak eta sagutxoak ez dautsoe ikutuyten. Ezta egundo ustelduten.
9'n. — Ez erkindu ez arrotzen, egoaldien gora-berekin.
10'n. — Zutoin, uztai ta oker-unetara, errez makurtzen da.
11'n. — Ormetako ta bastarretako utsunak txairo betetzen dauz.
12'n. — Berau jartzea, erreza ta garbia da; papela jartzea baiño errezagoa; untzerik eta abar sartu bearrik eztalako. Pixu ariñekoa da. Errez ebagi ta moldatzekoa.
13'n. — Etxe-barrietako apainketak oso merke ataratzen dira.
14'n. — Orrekin ez dago tximurrik ez arrakalatzerik; ez ormarik, ez sabairik.
15'n. — Sukalde, garbitegi ta abarretan, lurrunari, sendotzen ez dautso lagatzen.
16'n. — Bere salneurriak merkeagorik eziñekoak dira. Papelezko estalketaren lautik batekoa, or nunbait.

ZURAK, gai-bikañezko ol-zatiak, berebizikoak dira, otza, beroa, zaratea ta bustitasuna aldentzeko.

SALNEURRI BEREZIAK IZANGO DIRA AZILLEAN! Eskatu egizuz ardura barik, salneurriak, urrutizkin oneitara:

24-33-01 — 23-66-05 — 24-87-93

ERETXI BAT ERBESTETIK

Bizkai'tik bira bat egin ondoren, entzun eta ikusi ditudazan gauza batzuen kide ezin izan naiteke.

Erriak euren nortasuna galduaz doiaz, uri aundiagoren menpera. Ori ete da oraingotuen goiburu edo elburua? Ez ete da batzuen gorapena —gaur iñork ez dau zirkiñik egiten ibazi gabe— besteak bear-izanean eta mengo isteko?... gero bere eskuetan, ogia oretuten dan lez, erabilteko nora nai?

Uri aundiakin, goituriakin bat egitean, ez dago zalantzik, goiturietan auzune guztiak arduragabe ta loi ikusten ditut-eta, naizta zergak bardin ordaindu. Artutako guztiak edo geienak arakotutzen dira, txaiderik onenen edo enparantza begiragarrien apaintzan, ingurukoak ez balira-edo goiturikoak. Zer itxaron bear dute erri txikiak goituriakin bat egiñaz?...


Azkatasuna galdu, nortasuna estali, joputasuna geitu ta uri andiaren gaiztakeriaz jabetu, ta geien be, goituriko batzarretan aulki bat lortu, besteak esaten dutena entzuteko, ez besterik.

Eta zer diñostazue erri txiki bi edo iru batu edo alkartzea gaitik? Lan-sari bat edo beste aurreratzea gaitik, egin liteke ori? Ez ete dira egon naiko aldenduta basetxeok, uri-buru, uri-batzar edo lengo udaletxeetatik? Ta orain, euren bear-izanetarako, bideak luzeagotu? Uribatzarrok zorkorrak ez ziran ezkero, ez dut aurrerapenik iñondik ikusten; euzko era guztia, enda dala ta, bere suntsitean billa ez badira. Beiñik-beiñian nik ez neuke ezetzik esango. Gogo biurri geiegi ikusten da-ta, oneik ezin emon ondore edo arnari onik. Oldozmen au gaiztakeria ete da?

A'TAR AMANTZI

Itz-Eunduak

Etxebarria'tar Juan Angel



ARGIBIDEA

(a. a. = atzez-aurrera)

ZEARRETARA.—A: Eskuko atala.—B: Egiñegaz, begiratu. Begi-zorrotz.—D: Txarrikiak.—E: Argal. Bokal. Konsonant. Zugaitza.—G: Zenbakia. Ikatz zeia naparroan.—I: Guda.—J: Bizkai'ko erria. Konsonante. (a. a.) Geldi! astoari.—K: Eralgiteko tresna.

GOITIK BERA.—1: Konsonante.—2: (a. a.) Bildotsan deia.—3: Garra. Egur luzea. 4: Eldua.—5: Bokal bat ta iru konsonante.—6: Etxe-aberea.—7: Zotazal. Dau, gipuzkoan. Bokal.—8: Egosteko tresna.—9; Bildurrak eraginda.—10: 11'garrena aurretik dabela, janaria.—11: Bokal.

Urrengo zenbakian agerpenak.

ZUBIRI - OTAZUA

NARRUZKO OIÑETAKO TA SAKELAK,

Era-barriak gazteentzat,

erosoak jaun-andereentzat.

Ascao, 4 **Bilbao, 5**

Z U B I R I

Gerri-loturak,

Azpi-jantziak,

Soinkera liraiñak.

Ercilla, 30 **Bilbao, 11**

ZUBIRI - MARDONES

ARGONTZI APAINGARRIAK

Artekale, 50 Bilbao, 5

Z U B I R I

Gerri-loturak,

Azpi-jantziak,

Soinkera liraiñak.

Artekale, 50 **Bilbao, 5**

ZUBIRI - OTAZUA

NARRUZKO OIÑETAKO TA SAKELAK,

Era-barriak gazteentzat,

erosoak jaun-andereentzat.

Pl. Campuzano, 4 **Bilbao, 11**

Busturia



Lupe ta Asier, Bermeotarrak

Altamira'n Jaiak

Mikel deunaren eguna erri guztiak ospatu al-izateko, jaia domekara aurreratea asmau eben gazteak, eta olanik, 27'an izan zan egun guztiz ederra.

Rafael izena daukan gazte bat dago emen, eta eskerrak berari, «Irrintzi Alaia» deritxon dantza-talde on-ona daukagu. Onek itxartu eban beste mutil eta neska gazte pillo bat, jai aundi bat egiteko; eta onen lanagaz, ta etxe guztietako diru laguntasunagaz, ta Alkate jaunaren baimenarekin, ara zer egin zan:

Goizean goizetik etorri ziran Mundaka ta Ea'ko txistulariak, gero Gernika'ko talde bi, Bermeo, Muxika ta Ibarruri'ko dantzariak, eta emengo umetxoegaz batera, Poli, Txomin Martin, Xabier, Joseba ta beste txistulari nagusiak aurretik joiazela, erri osoan ibilli ziran. Leiora urten eta negar egiten eben etxekoandrak... zenbat gauza gogora etorrita.

Meza Nagosirako katekesisean ogibitartekoak, Koka-kolagaz artu eben umetxoak. Meza ostean, mutikotxo baten «ondo-etorria», eta eskerrak emon euskuzan danori, eta, alanik, talde guztiak jantzan egin eben: launakoa, txotxonpillo, zinta dantza ta abar.

Au amaituta gero, umetxo abeslarien Txapelketa. A izan zan abeslariak sortzea! Ogetamar izango ziran, eta lau kopa saritzat. Asier eta Lupe'k irabazi eben lenengoa, Mundakarrak bigarrena, Mikel eta Mire'ek irugarrena ta Iñaki ta Gotzonek laugarrena. Gero, kanpoko umetxoak etxe guztietara joan ziran bazkaltzen.

Arratsaldean lau terdietan, banaka, talde guztiak jantzan egin eben; gero, sari-emotea ta kopa eder bana talde bakotxari, ta gozokiak be an izan ziran ume guztientzako. «Agur Jaunak» abestuaz erbesteko umeak pozik joan ziran.



Illuntzean, Asier eta Lupe, Amaya, Ana Tere, Itxastarrak, Zorion ta Zabalondo'k abestu eben, batak baño besteak obeto, baita danak poztuteko «biribilketa» eta beste jantza batzuk be egin ziran orkesteagaz. Erri alde guztietakoak etorri ziran, iñoiz ez dan lez ikusi emen, eta Altamira'ko danok nortasuna apurtxo bat biztuta geratu gara beintzat.

LOURDES

Deba'tik

AGUR'ERI AGUR

«Esango nuke baña lotza naz esaten...»

Bost illebete bear izan ditut AGUR zanik jakiteko.

«Tene» idazle biotzekoari esker izan ditut AGUR'en berriak. Bidaldu eidazute zuen aldizkari atsegingarri ori ta, mesedez, bizi zeratela jendeari adierazi aldezutenen bide guzietatik eta era guzietara.

Illean beiñ gutxitxo da.

AGUR, amabostero bear zaitugu.

Astero, oba.

* * *

Oraiñ zortzi urte dirala sortu ziran erri onetan Euskal-Ikastolak Iñaki «Zesteroren» ardurapean ta bere etengabeko ekiñari esker. Mando batek aña tiratu zuan Ikastolaren gurditik martxan jarri zituan arte.

Egun latzak ziran. Egun gorriak. Akatsak eta estorbuak alde guzitik. Elizak eman zion babesa ta kereizpea. Txikia zan Euskal-Ikastola.

Azi txiki baten antzekoa. Azi orrek, ordea, indarrak zitun barruan eta indar oiek zabaldu dira urteak zear. Gaurko egunean lau eskola ditu Euskal Ikastolak, lau andereñorekin, Belen Egañaren zaindaripean, Parrokiaren Bigarren Maillako Kolejio berrian... Eskola ederrak, Bigarren Maillako ikasketak agintzen duten erara...

* * *

Alde orretatik ez degu eragospenik bat ere, ta luzarokoak lizazke gure Ikastolok... Gaurko gure eragozpenak gure arteko burruketatik datoz oso-osorik. Gure bizkarretik barre-algara gozorik egingo dute berriz ere... Bi katu guziok eta beti alkarren arteko burrukan. Bista ona ta alkar ikusi eziñ.

Euskeraren maitasuna balitz elburu ta eragitzalle, daudenari laguntzea izango litzake onena, beste berri batzuek sortaraztea baiño... Baiña, or zegok koska...!

—Zuek bat? Guk bi! Zuek lege zaarretan? Guk, berrietan! Zuek gora begira? Guk, zearka!

Gu euskaldunok barregarrizkoak gera askotan.

* * *

«Nor Jainkoa bezela?»

Oiek Aralar-mendiko alienazio zaarrak dituzu. Gaur-egun beste oberik ba degu...

—: Nor'ni'bezela?

—: Nor'gu'bezela?

Ori ez litzake txarra izango nor-bere burua jasotzeko, besteerena zapaldu bearrik ez bagendu ta geure burua garbitzeko besteenari txistu ta loiak bota-bearrik ez bagenduka...!

—Gu etorri arte ez dezute ezer egiñ...! Kendu guziok aurretik!

—Anaiak gera, ordea...

—Zer anai ta zer anai-osteko...! Gurekin ez datorrena gure etsai madarikatua da!

Alienazio aundiagorik nai dezu...! Alienazio ta mitoak udazkeneko orbelak baiño ugariago...! Euskera dala ta eztala... Batasuna dala ta eztala... Letrak dirala ta eztirala... Ikastolak dirala ta eztirala... Ipiñi gaituzte guziok alkarri mutur-joka. Orra alienazio igingarriak!

* * *

Kristautasuna omen zan Euskalerrian mito ta alienazioak sortzen zituna... Mito ta alienazio oiek kentzeko aitzakirekin, milla klaseko mito ta alienazio sortzen dizkigute egunero:

Euskeranto, atxeak, «batasuna», euskelkeria, taldekeria, sexo-libertadea, ezkontza-naasketak, ateismoa, Kristautasunari gorrotoa, gordinkeria, umien Jainko gabeko ezikera, abortu ta diborziojasotzeak, diktadurakeria, umien Euskalerrigabeko ezikera, dirua, dirua, dirua, ekonomia...

Orra zenbait Mari ta Peruren ipui berri! Orra mitoliji berria! Orra alienazio berri ugariak!

IFARKALE

Bermeo

Norena da itxasoa?

Len, arrantzale arasoa, gogorra eta latza izaten zan eguneroko alagora irabasteko. Ordu asko lanean igaro ondoren gaurko arrantza mordorik esan koxuten, eta gero porturatuta zer? Askotan alegiñen bidez untziratutako arraiñ ori barriro itxasora jaurti biar. Ori izaten zan gure lengo bizitzaren kezkea. Biarrizana. Urritasuna. Eta gaurko arraiñ-uruna egiteko «alfarik» ez egoan oraingo erara itxasoko lanaren alegiña dirututeko.

Gorago diñogunalez idazte onetan, oiñ amabost edo ogei urtetik onantza era gustiyetako aldakuntzak egin dira itxas bizitzan, bai arrañaren salneurrietan eta bai itxasoko ibilkeretan be. Eta auxe jasotia on bidezkoa da izan be Euzkal Erriko Arrantzale senidearentzako.

Iberia lurraldeak, itxas ertze luzeak daukaz. Geyago edo gitxiago, itxas gizon askok, bere bizitzarako lana, an or edo emen aurkitzen dau. Isontziak lengoaren aldian aundi eta bultzakada indartsuagoa daukoe. Sare eta arrantzarako biar dirazen tramankuluak be ameriketa eta beste erri aldeetan erosita daukoez. Eta gaurko tresnaren barruan ingirututen dagon arrañak ezin dau iñora iges egin. Olan ikusten doguz zelako arrantzak lortuten diran gaurko egunetan.

Oraiñ bai. Aurrerapide oneik eta euzko itxas langilleen ausartasunak, arrantza arasoetako, españar portu askotako arrantzaleak bekatx edo inbidiye daukotsoe. Eta ori zer gaitik? Ez dakiyelako arrantzan? Edo, ez dabielako ezelako dirurik eralgi? Dana dala: Euskaldun Arrantzaleak ezin dabiez ikusi orrein aldetik, batez bere bermeotarrak. Ziyotzak? Ara eurori jazo yakoena. Galizi aldean itxi nai ez karnada edo beita egiten egaluzetako, baño eurori bertan arrapaten daben arraña erosten bai ondo ordainduta.

Eta oraiñ barriro, Canarias aldeko Hierro izen daben itxas leor bastarretan arrantzan ibilli dirala ta gure arrantzaliek, agintariyakana juan dira zigortu deyezan bermeotarrak, eta onen aurka gogor dabiltzaz.

Gizona alde guztietan aurrera doa, eta gorantza gura dau bere bizitza eruan. Jazoera ori txalogarria da. Eta Euskaldun arrantzaleak ori egiten ba-dabe, ekintza oneri gorrotorik artu barik zelan ez dabe egiten euron antzera bardiñ ontziak, sariak eta beste tramaunkulu guztiyak? Orduan zer gura dabe beste itxaropen barik, eurolez bizitzia? Eurolez ibillitia atzetik arguntzi gorriaren antzera? Beste asmo eta bizitza obiagoa ukatuta? Ori ez beintzat. Gaurko mundua ez da olan bizitzeko. Barriztu edo ondatu. Eta orixe da egin dabena Euskal-Erriko arrantzaleak.

URKIDI

Larzabal

Aurtengo Biltzarra Larzabal'go errian, Agorrillaren 27'an izan da. Larzabal au Beko-Naparroan, Dona Paleu'tik bertara arkitzen da. Euskalerriko erritxo politenetako bat, noski, auxen da. Bere etxe txukun eta garbiak, geienak sakabanatuak agertzen dira, eta ez alkarren gainka kaletan, eta bere inguruak atsegin eta zoragarriak dirudite.

Biltzarrak urteko erriz erri aldatzen beren bilkurak eta jaiak egiten dituzte, alde guzietan euskaltasuna eta gure izkeraren aldeko gogoa errezago berotzeko. Eta onela 1.902'tik asi zanezkero Bidasoaz goitik batetik bestera ibilliaz, alde guzietan ongi ezaguna eta maitea da.

Aurten bada Larzabal'go erri polit onetan jai aundi ori izan da, eta erriko eliza txikitxoa izango zalako, pelotatokian, ortarako ongi eratua, Meza nagusia eta erri guziak euskalabestiak abestuaz eman zan. Narbaitz apaiz jaunak itzaldi ederra egin zuen, guzien gogokoa bera.

Ondoren abeslarien sariketa izan zan, eta bertan gazte jator eta abots ederrakoak, guzien atsegiña eman ziguten.

Ondoren bazkaria, eta ez nola naikoa, zortzireun baño geiago lagun antxen bildu ziran, eta alaitasuna guzien arpegietan ikusten zan. Txistulariak ere beren eresi ederrak jo zituzten, eta gero bertsolariak Xalbador, Ezponda, Mattin, eta Etxahun'ek guzien poza zabaldu zuten.

Xalbador, Aldudetako semea, beti bezela, bere euskera garbian bertso apain eta bikañak esan zizkigun. Ezponda eta Etxahun'ek ere erreztasuna garbiro agertu ziguten, eta azkenik, Mattin'ek bere itz zorrotz eta pozgarrien bidez guziak atsegiñez ipiñi zituen. Aek ziran, aek ateraldi zorrotz eta parragarriak! Laurak txalo aundiak jaso zituzten.

Ondoren Eskualtzaleko Biltzarraren Lendakari dan Labeguerie jauna, ainbeste euskalkanta eder sortu dituena, Kanbo'ko sendagille eta alkateak itzaldi eder ta jakingarri bat egin zuen, bere poza agertuaz ainbeste lagun bildu ziralako euskeraren alde lan egiteko gogoz beterik.

Bere ondoren mintzatu zan, ainbeste urtean Lendakari izan dan Dassance jauna, Ustaritztarra bera. Urtea joan eta urtea etorri, amaika lan eder egin du gure izkeraren alde. Guzien ezaguna bai da, eta ongi ikusia eta maitea nunai. Argatik bere itz beroak txalotuak izan ziran.

Orrelako jai ederra eta atsegiña ez da erreza berriz izatea, eta an bildu ziran guziak egun aundi ori beti gogoan izango dute, ikusiaz gure euskera bizi eta indartsu egun guzian entzun zala.

Zorionak bada, biotz-biotzez Eskualtzaleen Biltzarra'ri, 1.902'an sortu zanetik ainbeste lan egin duelako.

I. LARZ

Oba-Dima

Iñungainpeko auzotegiak, Oba'k, irakatsi ederrik izan dau jaiak eratuten, eta beetarrak bere izan dabe non ikasi Sanpedro-jaiak betirako lurra jota ikusterik gura ez padabe beintzat.

Erriko buruzagien aldetik ba-egoan alako ostopo edo erreztasunik ezaren egarria; bat bear eben, ezertako okerrik eta nasterik izango bazan erantzuna emoteko, eta Antonio izan zan, euriarnaiz aizeari, paparra emoteko gertatuzana; bestela; etzegoan zeregiñik.

Artaun'go Endrike'k, 91 urte bizkarrean eta erriko urtesuena danak, egunetarako durunduz bete zituan inguruetako atxarte ta luki-zuloak. Tuntunarennarrua ketan eukan, eta etorriko dan urterako, J. L., Jildo'k egingo dautsoazkonar-narruzkoa, gogorragoa.

KITARRA TA ABESTI

Ikusle-entzulek iñoiz ez lako asealdatsegiña izan eben arratiar abeslari gazteai entzutean. Oarrak egitea ta azalpenak emotea Gorospe'tar Ander'en eskizan zan. Gazte onek ez dau Txomin «Errekagato'ren» antz-izpirik; lenengoaren euskal-ezaugarria, gizontasuna; bigarrenarena, gizonkeria. Ona emen «tasun» eta «keri» bitarte zabal-sakon Bizkai'ko euskaldunik geienok aintzakotzat artzen ez doguna, zoritxarrez.

Abeslari gazteak, bai-ta umetxu poliñak, oneik izan ziran: Areatza'tik Patxi. Lemoa'tik, Egileor eta lagunak Artega'tik, ipar-izarra lako neskatillak abar eta abar. AGUR'en arpidedun da Iturrigorri'ko semeak ezin izan dau zeatasun geiago bildu, batu; eta nik... ezin jarri ba.

Oba'n eskurik eta oiñik izan dozuen guztiontzat txalo bero-beroak, eta etorri maiz, sarritan aldizkari onek zuentza dauazan orrialdeetara.

EZKONTZA

Oraindik aurrera ezkonduko dira gizonezkoak eztabe izango emaztetzako diruz eroste rik, emakumeak bere eztaizango beraren burua saltzerik amaitxanponen truke. Alkarrentzako diraezkero, mailla ta eskubide bardiñak izango dabez, eta ezta izango nagusurik etotseiñik. Garaia zan.

Era barri ontan alkartu ziran, Olazabal'ko baselizan, on Anastasio'reitaungalderari baietzakaz erantzuniIturbe'tar Sabier (Edova) eta Landajuelatar Julita.

Ezkontza-zauririk izango bazenduetzaiteze astu Erroke deunaren ondoizan zan txakurtxo zauri-sendatzallearkin. ZORION!

ANDONIK

Arratia

Irakurle maite, Aitor'en izkuntza txukuna ikasalegintzen zaran umetxo samur, guraso arduratajakitun ete gagoz guztiok uskurtza edo erlejiño batbaten armatzalleak, dauken indar eta almen guztiakaz, bai euskerea, bai oiturak eta bai Eskalerbera; zikindu, birrindu, ezbeartu ta ezereztuasmoz ta gosez ixilean, gogor baiña, lanean adirala?

Kontu, gazte. Bidearen erdian urrutian, urriñagirian dagon sugetzarrak ikara sortzen dausbaiña, agertuta dagonean, astia izaten dogu erabagartzeko, burrukan egiteko naiz iges egiteko. Berarerio oso-osoa ez da.

Asko gaiztoago da ikusten eztoguna, orbelpeorbelpe ixilik eta leunki dabilkuna, tximel-zixtrinotoz-otoan ortzak jarri naiz txorkatillan kiribiltayakuna. Kontu andia izan ba, gazte, narrakaskar edentsu oneikaz.

Koipe-lapiko

Anaitasuna, batasuna, Arantzazu ta Errendorra emen ba itz koipetsu zuri-zuriak, asmo onguziak, esanak ba'lira, oso gozo ta altsuak.

Bide-arlo andiak eginda eskeiñi euskuezan orgoak bazen buruargi ziranak. Anaitu ta bgaitean Arantzazu'n naiz Petralanda'n, eginbideak zabalagotu ta edertuteko. Zorakeria litzbide barriak egitea mendi baldarretan, aker tantzekoentzat bakarrik izango litzakezanak.

Euskaldun-fededun

Irailla'ren 13 gn., erri batetik eta besteibilli ondoren aldi ontako odei illunaren errezautu gurarik, jarraituan dagozan itz oneik euskuzan, samin eta oñazez beterik, baiña miñazauri barik, apaiz jaun goragarriak: «Euskatrakestu, Euskalerria ondatu, ta Jaungoikoaizena estaltzen eta aztu-arazoten diarduen gaztxoen azpikeriak, askok uste-dogun baiño zutsakonagoak emon dauz. Euskaldun fededun izenaizatea amiltegiaren ertz estura eroan dauskuondamendira; eta naste baltz lotzagarri onapaizkiak, abadekiak bere, barruko dira».

Jaunak; andrak; ba-dogu burua non nekaIzan gaitezan zurrak azegariak jan ez-gagiz

LANDAJUELA'TAR A.

ERRIETAKO BARRIAK

Garai

Erritsu polita ta ospetsua

Benetan da Garai baserri ederra. Durango alderdietako begiratokia deituten dautse. Laster bai erritsu ori, berrogetamar auzokoz eta ikuskizun zoragarriaren jabe, Oiz-mendipean eta autopista barri alboz, egotaldi zale ta naigarri izango da, «zona residencial» diñoe erdeldunak.

Gizadi andizkiak emendik urten eben. Uri aundi Buenos Aires'eko iraslea, Juan de Garay, emengoa zan. Eta nok ez dau entzun Zubiaurre'n izena? Lenengo eresertian ta gero, batez be, margolariz, mundu guztian entzunekoak izan dira. Arjentina'ko idazlari, izen andiko Hugo de Wast'en alarguna, doña Matilde de Yriondo Yturraspe, jatorriz, Garai'koa, igaz, ona etorri zan. Beragaz etorri ei-ziran Arjentina'ko lendakari Ongania'ren emazte, doña María G. de Urien ta onen lengusua, D. César G. de Urien, Arjentina'ko geznari Madrid'en dana.

Idi-burdiz, mille metro edo kilometro bat orduzkada, ibilli ziran Garai jatorriok. Bitartean, egazki «jets»ak Durango'ko zeru zabaletik ikusten ziran egaz. A bai zan ikusgarria! Amerikarrak Illargira elduten egozala, batek iruditu ta amestu leikean.

Julian Berriozabalgoitia, oraingo ugazabak barriztauriko «Urien» baserrian, Durango'ko euskal dantzari aldra «Txoritxu Alaia»k, arein opaz, dantza egin eben, lenago euren ezpatakin zuruztaia ipinita.

Amarretako berandutxua artu eben, Sarria ardauaz ta bertako lukainka ta beste janari gozo-gozoekin. Ta gero poz-pozik ikustaldia baserriari egin eutsoen, biotz-ikaraz euren asaba-gurasoak angoak zirala jakindakoan. Anai, lagun eta jatorrieri, lilluratuta Garai'ko oroipen ta gogoagaitik, Julen Berriozabalgoitia'k «Urien» narruki ikurdi-eskudo bat emon eutsen.

Ondoren, itzulpen-etorria, landetatik berantz mutiko txikiak ariñiketan deadarka, txori alaiak lez, jatziten ziran. An berago, Garai'ko Udaletxearen oparia. Onek, Urien baserriko jaunak lez, Urien'dik urtenikoen jauntasuna batsetzi eban. Azkenez, Erriko tabernan bazkari eder bat egin eben, berezi azpil-platerakin, burduntzi edo Durango'ko edertzalle batek eta Abadiño'ko Lazpita'k egur ikatzaz erreriko bildotsa ta otseinduta neskatillak apainduaz euskalerriko jantzi politakin. Egun orretako azalpena zan, zelan erri baserritar eta abeldun ogetamar auzoko batek, gizarte goienetan bizi diran eta Amerikatik eurak jatorri dauken erriko aize ta espiritua artutea. Ames egiten dabenei, biotz barreneko poztasuna daki emoten ta emon leioe.

LETONA

Bilbao

BERE GIRO TA ETORKIZUNA

Bilbo'ko ke ta aize zikiñean buru-belarri murgildurik, ta bere zeru illun eta berebil-errekiñekaz aspaldi ontan inguraturik gabiltzanok, pozarren entzun daroagu gure geroko Bilbo aundi-zabalatzaz bereziko biltzar-alkartea osotzen daben gure sei erritar errimeak —On Pedro Izpizua jauna eraikille ospetsua seiren buru dala— egunotan darabillen batzarra.

Ez da edozelan be euren lana erreza, ez bein. Laster samar ba, Europa'ko kai ederrenetariko bat eukiko dogu, arrolio iraztegi-refineri bikain bat ta guzti bere alboan datzala.

Bilbao-Beobia arteko auto-bide zabal biguna biurgune bakoa bere bai edozela. Erandio ta Barakaldo'ko itxasgintz, lantegi ta metalgintz-burdiñolak egokituko ei-dira berebat...

Baiña ori ta orain estu bagabiltz, zer jasoko ete-iaku emetik bost-sei bat urte barru? Nora jo bearko dogu?

KE-LAÑOA

Aor guztion eretxiz bene-benetako untzea. Nola askatu urteak-urte geroago ta sendoago doan aulako matas-korapilloa?

Etorkizunari aurpegia emon bearra dogu alan be. Beti aurrera so-egin bearra nolabait.

Bilbo'n, orraitiño tamalez ez da idoroten nunai bear dan beste utsune orle girik. Dagozanak, loratu, edertu, barriztatu bear geunkez Artxanda'tik asi ta erdi aztuta daukagun Pagasarri'tik —bere mendi-egal ta guzti— batez bere jarraituz; atzendu barik iñola bere Asua inguru-minguruko oian-basotxo alaitsuak. Bilbo'n bertan ba, Lore-baratz-parkea ta Areatza-arenala izan ezik ez dalako aurkitzen enparantz ta egotoki aundi-samartxurik.

Geure euskeratzaz bere zer esan daikegu? Nola mintzatuko gara? Guri ardura dauskun gai onetan ez gara kikilimakal ibilli bear. Jarrai ta jarrai baiño su ta ke gure euskal-arloan. Geuk bere, aldiaz bat egiñik, aurrerapen bardiñak dagiguzela geure euskera maitean.

Gure ikastolako umeak begi gozoz ikusi dagiela urte batzuk barru, guk aurretikuok, adiñekuok orain dagigun guztia euskeraren alde.

ITXAROPENEZ ERNE

Esan dautsuet zerbait andi-andika ta buru-auste larregi barik. Ba-dogu bai nun gogartzeko ta erabagiak billatzeko gai ugaria, guk ez-ezik baita erantzunbear biziagoagaz atan be, biltzarreko sei bilbotar jakintzuak eta gurasoak.

Artean ipiñi daigun gure ustea uri antolatzaille-asmatzaille oneitan. Jaungoikoa lagun idoro dagiezela lenbailen oraingo ta datorren belaun-aldirako bear diran neurri onuragarriak.

Au izan daitela euren elburu ta jomuga berezia.

ARREGI'TAR JOSU

Morga

Omenaldi bilbaiñ bat

Joandako iraillaren 27-an egundoko omenaldi bat egin eutsan Morga-ko erriak On Enrike Pujana Agirregabiria abade jaunari. Berau izan dogu bertoko abade nagusi ogeta amabi urte luzeetan. Erriaren gogoko abadea izan dala ezbai bagarik erakutsi eben Morga-ko eleiztarrek aitaturiko egun orretan.

San Martingo parrokia deritxan eliza nagusian batu zan jendetza etzan txantxetakoa izan. Agintariak aurrenengo zirala, etorri al eben guztiak bertoratu ziran eliza eder au gañezka ipinteraño. Ez bakarrik Morga-n bizi diranak, albo errietan eta Bilbon bertan dagozan Morgatarrak be ementxe ikusi genduzan. Ainbeste ta ainbeste.

Amar abade-praileek emon eben baterako meza On Enrike erdian ebela. Amarrok emengo semeak. Egokiera aundiko berbaldi entzungarri bat euskun Aita Felix Bilbao prantzizkotarrak. Bertoko seme dogularik, berau izan gendun, gaiñera, omenaldia gertetan aurrelari ta suspertzaille. Bai eliza barruan eta bai elizatik kanpo, berau izan zan jaialdiaren bizigarri ta eragingarri. Ez da makala Ganbeko seme argi au!

Mezatan Enbeitatar Balentin eta Sarduitar Joxe Mari bertsolari ospetsuak, biak Muxikarrak, tarteko izan ziran. Bertso ederrik bota euskuen mezaren asieran, erdian eta amaieran. Adurra darigula entzun geuntsoela esatea gutxi-gutxi esatea litzateke.

Eskeintzerakoan erriko neska-mutil gazteak aintxiñako erara apain-apain jantzita eta biñakabiñaka urreratu ziran aldarera. Erriak esker onaren agergarritzat gertau ebezan emoiak eroiezan On Enrikerentzat.

Meza ostean jaialdi ikusgarri bat egin zan eliza aurreko zelain. Ibarrangelua-tik «LOREA» deritxon dantzari taldea etorri jakun On Enrikeren omenez euren trebetasuna erakusteko. Bai ederto erakutsi be. Ango abade dan On Txomin Zuloaga da euren buru ta arduradun nagusi. Erakusle, ostera, andareño jator bat. Berebiziko pozaldia izan eban jendetza aundiak neska-mutil gaztetxo areen dantza-mueta guztiak ikusirik. Agoa zabalik egon giñan eurai adi-adi. Ordubetean, ortxe-ortxe.

Bitarteetan, barriz, barriro bertsolariak. Ango entzuteko gogoa! Ango barre egin bearra! Noraiñokoa eta da euskaldunen bertso zaletasuna? Etzan izan an aspertzerik, ez gogait egiterik. Onango egunak sarritxoago izango bagenduz!, iñoan jendeak etxeruntz joateko ordua etorri zanean.

MORGAKO

Galdakano

Euzko jakintza astia...

...Orretara deitua izanda Iralla'n 28'garrenetik Urrill'n lau'gn. arte euki dogun astiari, eskerrak bertoko gaztedi euskeltzaliai. Eta benetan txalogarria izanda, eurak nai izan daben lekua izan ezpa-da be, bide zuzenian aurkitu dabezan eragozpenak gaitik.

Aurreko gure idazlantxuan iragarriten genduan lez, euki genduzan euzko etxegintzazko itzaldiak etxegintzlari (arkitekto) bik azalduta; lutelezti edo geograpiataz; «Ama-Lur» mintz ikusketa bere azalpena emonaz ta abar. Beste gai jakingarri bi be iragarrita eukezan, Eleztia (literatura) ta erestia (musica)'taz, baiña, galerazuak izan ziran; danok aste barruan.

Larunbata gabian, euzko jai eder bat izan genduan «Regio» aretuan, toki guztia notiñez gañezka baterik zala, bertan dantzatu ta abestuko ebenai adi, ta txalotsik beroenakaz artuaz danak. Jai ortan alde artu ebenak Donosti'ko «Argia» ta Lizarra (Estella)'ko dantzari trebiak izan ziran; ta abestu ebanak, Legazpi'ko Itxaropena irukotea; Motriku'ko «Txairo» bikotea, Bilbo'ko «San Anton» Abesbatza, ondo baiño obeto abestu be! eta, bai-ta Bilbo'ko Natxo ta Itziar bikotea, abesti batzuetan beste gazte bat lagun ebela. Irukote oneek be ederto abestu eban, abots onez eta bakuntza andiaz, baña, zer abestu eben ta norentzat? Bizkaitarrak izan arrik eurak, ulergaitz egin yakun abeskeran erabilli eben euskerea, «batua» zala esan euskuen geruago; oso batua izan biar eben erabillen itzkera, ez zan galdakanotarran artian zabaldu-ta. Orren ez-jakiñak ete-gara galdakanotarrok euskera gaietan?

Dantza ta abestiak diran tokietan ezin izan litzakezan erriko Martzelo soñulari ta Erromalda pandero jotzallia barik eta, baita beronen senar Joseba be arrazko edo panderoaz zala, jo ta ke atera eben, txalotsik andienak eurekanduaz. Eta azkenez, Andra-Mari'ko txistulari jatorran soñuotsian danok AGUR-JAUNAK abesti goxoa abestuaz amaia emon yakon jai bikaiñari.

Urrengo egunian, igandian, kalejiraz eta euzkerazko meza eder batekin emon yakon jaiari asiera; bera amaitu ondoren erriko txaide naguzia ziar, Bermeo'tar «Erriko-Lagunak» txistulari txiki Batza, neska ta mutil eundik gora, aurretik zala ta errira etorri ziran dantza talde guztiak euren txistu ta soñulariakin, ostikoketako landara zuzendu ziran, bertan batu zan ostetza andiaren aurrean datzatuteko. Ikusgarria benetan umetxu bizkor arein ekitaldiak! Gipuzko, Araba ta Bizkai'ko erri askotako talde apaiñak bertaratu ziran.

Arratsaldian barriz, euzko giroko burditan igarote-ibilketa, amar burdi, bakoitza beren soñulari ta jarraitzalle taldeakin, Bermeo'ko txistulari maitekorrak aurretik, Lemona ta «Andra-Mari» ko dantzariak erdian ta Arrasate'ko danbor talde apaiña, ondo gertua orixe bai benetan, azkenengo zala. Dana guztiz ikusgarria milleka notintzan alaitasuna ta apaltasuna, ta gertutako jaiaren giro goralgarria.

BASA-JAUN

Usansolo

JAIGURDIEN SARIKETA

Zoragarrizko eguna, Urrilla lenengo igandean Galdakano'tar guztiak igaro genduana. Ta ez guk bakarrik, bai ta be inguruko errietatik Galdakanora eldu ziranak Euzkal Jaiak gorezteko biotz alaiaz.

Goiz goizean asi ta gabaz azkenengo soñuak amaituarte, ainbat gauza eder ta atsegingarri izan ziran gure errian.

Zenbat ume talde, soñulari, oinkari ta abar, gure biotza poztu eben, euren zaletasuna ta nortasuna erakutzirik.

Baña aurrerako urtiatan lez, baratz onetan mordoka egozan lora artian bateri itxaroten zengozan gure zentzun guztiak.

JAIGURDIAK

Ta bai ta be ederrak ba ziran. Arrotu geintekez gure gazteen lanakaitik. Euren zaletasuna zutunik dago.

Eta au olantxe dalako, gauza bat azaldu gura neuke.

ZARI ORDUA

Ez da erreza zuzenbidetik jokatu, norbait mindubarik. Ori danok dakigu. Baña alegiñak egin daiguzan, jai eder au ez galduteko. Ausnartu daiguzan gauzak ondo, ta danon artean, danok bat eginda, aurkitu daigun egia. Entzun zergatik diñodan orain artekoa.

Usansolo ta Labeatik, Jaigurdi bi eldu ziran Jai ikusgarri onetara. Bata, gaztigu aundi bategaz. Bestea, antxiñako oiturak ta lanak erakutziaz. Lenengoa, apaintasunaren ganetik, bere bearrezko buruera erakutzirik; bigarrena barriz, beste edozein gauza baño len galantasuna eurrez ipiñiaz. Ta jakiña. Zer da aurren? Alde bietako erantzunak izan doguz. Nire ustez, Jai atsegingarri onegaz jarraitu daigun ezer galdu barik era bitera jokatu leiteke.

Lenengoa, danontzat sari bardiña. Bigarren, sariketa gero ta ederrago izan deiten galantasun neurri bat, gaztigu daukien Jaigurdiari eskatu. Baleiteke bide obiak izatea, baña oneik bien artean, bigarrenagaz gelditan naiz. Jaigurdi guztiak bere izena betetzeko, galantasun neurri bat bere bear leukee.

Bestela, apaintasunari begira dagoazen Jai-gurdi egilleak, beste batzuk lan gitxiagoagaz baña buruera eder bategaz, lenengo saria artu dabela ikusiaz, eurak be, lanari utzi ta gaztigu billa asiko dira.

Ta danok buru bardiña ez daukagun lez, gure sariketa gaztigu gitxikoa izango da Jai-gurdi geienetan, ta bere apaintasun guztia galdua.


Ez daitela onelakorik jazo. Ausnartuten asi urrengo urteko sariketa zoragarri au zelan goratu, gure erriaren nortasuna gorengo mallan ipiñiarte.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Urduliz

Lenengo orrian irakurriko dozue, etxe onetan eta Euskalerri guztian izan dogun naigabearen barri. Don Gotzon abade zintzo ta lagun ona galdu dogu, gure ondotik bizitza obera joan jaku. G. B.

Emen baiña, bere bizikera jatorretik lortu al-izan eban danongandiko maitasuna agertu gura dogu. Ara zer ikusi gendun Urduliz'en, bere illetetan. Ordu egokia ez izan arren astegun baterako, eguerdi ostetxuan, inguru guztietatik etorrita iru millatik gora alkartu gintzazan eleizan eta onen inguruan, ezin izan gintzazan ba danok barruratu. An danon erdian gendula abade maitea, 18 abade ta lekaide lagunek esandako meza ederra entzun gendun, ta ederrak baita D. Claudio'k esan euskuzanak, neu atadian nintzan, eta itzaldia asi ebanean, inguruan giñan guztiok, eztul bat egiteko bildurrez, ate zulo guztietara biurtu genduzan gure belarriok, itz bateri be ez utsik egiteko. Zenbat maitasunezko malko eta negar entzuleen begietan!: Anai zintzo bat joan jaku, ta minduta gagoz; leku obera ezin zan joan, ta Urtzi'ren aurrean gure bitarteko egin da, ta au bai pozgarria!



Gotzon ba-zendun zerbait! A zan notintza zuregaz bat eginda! Ala ta be, Bermeo nausi. Zenbat bermeotar ete-ziran bertan? zortzireun? milla? Ta minduta esaten euskuen, etortzeko aukerarik idoro ez ebelako, askoz be geiago geratu zala Bermeo'ko enparantzean negarrez, nun etortzerik ez ebelako. 8 autobus eta ez dakit zenbat belbil ta taxi Bermeo ta Muñua'tik. Trenkadak eta belbil ujola Bilbao ta inguruetatik, Urduliz osorik, ta biotz on guzti areitan ez egon Gotzon maiteari agur egitearen sua besterik.

IBUR

KILI - KILI'REN IBILLERAK



Leire'ko plazatxu baten dantzari gure neska-mutikoak. Dantzari ta jostari. Ez zan antxe iñor asarre



Leire'ko landa baten atseden aldia ta janaria.

Juan dan illeko alean eskiñi geuntsuezan argazki batzuk, or azaltzen dautsueguz kili-kilitar maiteeri.

Ezer esateko ete eukanez-edo, beste bisitatxo bat egin neutson lengo egunean gure mutiko izugarriari, ta an aurkitu neban idazki pilla aundi batean murgilduta Euren artean, egazkiñez etorri oi diran idazki koloreetakoak ikusi nebazan eta nik galdetu:

—Aideplanoz be idazten dautsue? Ta nundik?

—Californiatik, Caracastik eta Londrestik be bai. Ortikoak dira ikusten dozuzanok.

—Ta zer diñotsue ba?

—Nere kuadernoak pozik irakurten dabiezala ta... eskupekotxoren bat izango dodala.

—Ezta izpar txarra ori. Eta Londres'ko orrek?

—Orrek... atsegin-aldi ederrak pasatzen dituala Kili-Kiligaz, eta...

—Eta zer geiago?

—«Personaje fantástico» nazela.

—Erderaz?

—Bai; irakurten ikasi ei dau baiña idazterakoan batzuk ezin asmau izaten ei-ditu. Beraz... parkatu egin bear. Kokotik ez dautsot mostuko, orrek ikasiko dau-ta.

—Ondo pentsaua. Ez jako iñori ezer mostu bear.

—Ta neri bai? Larrabetzutarrei aititak idatziriko idazki artan, bi belarriak mostuko eustazala esaten eutsen.

—Bai; aititak ori baiño geiago be esan daiketsu. Aititak maitasunez esan oi ditu alako txirriztadak. Egon ziur, aititak ikusiko ba-leu batobat, zuri belarrondokoa emoten, ez litzake gozoa jarriko. Lenago mostuko leuskioez belarriok berari. Ori ondo dakit nik. Beno, txapelaundi, kontau egiztazu kili-kilitarren izkirimiritxo bat, zuk asko izango dozuz.



Lesaka'ko plazan biribilketa.

—Izkirimiriak? Jasaus! Eundazak daukodaz batuta. Orra bat Markiñako mutiko bati jazorikoa: Etxeko sukaldean buruz-belarri, makurturik, Kili-Kiliren sariketarako kuadernua betetzen egoan. Bere ganean, goian, lukainka-txorta ederra dindiliz. Lukainkok izerditan egon agiri danez ta... izerdi tanta koipetsuak irrizt egin eta bere kuadernu garbiaren gaiñera, tanta ederra jausi. Aren naigabea! Aren negarrak! Berari beste kuadernu barri bat eroateko, bestela, koipeztotzat artuko ebala Kili-Kili osaba abadeak. Azkar, beste bat em teko berari.


Ama eskutik arturik, tira-tir urrutizkin-etxera eroan eban. Am azaldu andik, zer jazoten jakon tikoarekin. Nik, ez eutsola ard koipe-tanta bategaitik. Alperrik! A garraziak! Aren zizpuruak! Neuk tzuten nebazan Bilbo'tik. Ta bak egingo ba-ziran, bi ordu barru, izango ebala kuadernu barria bear izan neutson. Ta bai eroan Ta bai arek txukunki beteta it Utskeri ortatik ikusi daikezu, ard aundiz jokatzen dirala kiki-kilitar tiak. Ardura ez-ezaguna azaltzen d nere adiskide neska-mutikoak. M teago gara maiteago!

* * *

Baserri-auzuna baten, etxe aur itxulapikoa jarrita daukon nesk be ezagutzen dot, «Kili-Kiliri la duteko» diñoan iragarriarekin, txikitxu orrekin, andik igaroten d neska-mutikotxoak zuzpertuten ta noizik bein bete-beterik bial dausku. Zaldibar'ko Lasuen nes llatxo politak be ekarten dausku ituxulapiko ederrik!

—Ederto Kili-Kili. Izkirimiri politak dira orreik. Bakotxak b aldantxoan laguntzeak balio au dauka; eskergarri dira. Orain mutiko azkarra zara ta... ia Am aldeko praka zabaldun orreik, zabaltzen badautsue. Biotzean kili egiten badautsazue... nork

ABELETX



Lekeitio'ko itxas-bastarrean pozkiro dan-danak



Butron'en jauregia ikusi ostean.

AGUR

ILLEROKOA
7 ZENBAKIA

1970 - AZILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

GIRO BALTZA

MINTSU

Gotzon, gure adizkide ona zanari azken egurra egin barriak giñan. Urduliz'ko Eleizan lenengo, Mañu'n urrengo. Biotza oiñazeak zauritua; begietako negar-malkoak agortuak; buruaren jabetasuna kili-kolo. Ezin eriotz orduko irudi tamal areik aaztu.

Era onetan gengozala, orra nun itz zital eta ganorabako batzuen oiartzuna jatorkun, nork, nun eta zelan esanak izan ziran dakigula gaiñera.

Urduliz'ko Eleizan, D. Klaudio'k ain txukun eta maitekor egin eban itzaldia «facistea» izan ei zan... Jaungoikoa larregian izendatu ei eban eta. Gu, an giñanok, geienak beintzat «sentimental» utsak. Geroko gizarte barriak ez ie dau «sentimentorik» bear...

Ez da gitxi esatea, baiña bai D. Klaudio'k eta bai guk olako jardunari ez dautsagu garrantzi larregirik emoten... oitureak gogortuak, noski!

Ez zan baiña ori «aurrelari-progresista» talde orren marmara bakarra: «Gure Gotzon txotxolo bat izan ei zan», au, jaunak, geiegi da, obeto esateko, NAIKO DA!

Ezpata zorrotzik baiña, ez dogu erabilliko, naiz idazlearen gogoa beste bat izan. Gotzon'en asmoa maitasunezko batasuna zan, Luther King'en antzera, ta bere oroigarriz bide orri jarraituko dautsagu, editorialetan beintzat.

NORTZUK?

Gotzon gaitik txotxoloa zala esateak mindu gaitu; zelan ez? Baiña, geiago mindu gaitu gure Errian, Euskalerrian olako gauzak esateraiño bultzatu gaitun giroak. Iritzi ezbardiñak azaltzeak orrenbeste gorroto sortu leike? Ezagutzen eben guztiak maitatzen eben gizonagaitik, olakoak esaterañokoa?

Zenbat mesede egin ebazan arek, baiña ez ona zalako bakarrik —onak txotxolotzat artzen ditue batsuk—, errizale amorratua zalako baiño. Bere eleizkizuna amaitu ondoren, Mañu'n, Balendin Enbeitagaz alkarrizketan nengoala, onek esaten eustan: «alegindu gadizan, iritzi ezbardiñekoak izan arren, alkarreri miñik ez egiten». Egi biribilla iñoan gure bertsolari ospetsuak... baiña nundik sortu da giro baltz pozoidun au?

Lengo egun baten, nere lagun bateri, gitxi gora-bera, au esan eutsen: «Arana ta Azkue izan ziran euskerea ondatu ebenak». Olako laprastadarik ez dogu iñoiz entzun. Arana ganako gorrotoa izatea «ulertzen» dogu, onartu ez arren, baiña, zelan orain Azkue'gaitik olakoak esan?

NUNDIK

Nun dago jokaera onen zustraia? Nere ustez etxeko eziketan duda barik. Emen izendatu bear ez doguzan marmara zabaltzaille orrein jatorriari begiratu ezkero, geienean beintzat, gauza bat ikusten dogu: orrein gurasoak erri-zaletasunaren etsaiak izan dira, bai euskera aldetik, bai gizarte bide guztien aldetik. Euskal zaletasuna eureri, berez edo lagunartean sortu jake, ta gurasoen aurkako konplejoak bultzatzen ditu beste guraso guztien aurka.

Gizartean, errizale egin dira, ta gizarte au erdel kutsuzkoa da. Kutsu onek iru bide izan ditu gure etxe barruan sartzeko. Bata berezkoa, jendea ara ta ona lan billa bultzatzen dauan ber-bera. Bestea, lengo onen antzekoa, baiña zuzendua. Irugarrena, «erri-zale» barri oneik dakarrena.

Sozial ikuskizun edo prespektiba barria erriaren eziketan sartzeari ondo deritzagu, baiña, lenengo euskalduntasuna sendotu, indartu ta bear dan lez neurtu. Etxean onelakorik ezagutu ez dabenak, erri xearen izakerea ezagutzen ez daben bitartean, ez artu maixutzat.

Arrotz oiturea ta izakerea sartzeko biderik arriskugarriena irugarren au izan dogu, gizon eta emakume orreik dakarrena. Ortik etorri da giro lotsagarri ori gure Errira, ortik D. Klaudio fazistatzat edo Gotzon zana txotxolotzat botatzen ausartzea. Gure gaztediak ba dauka, euskaldun iraun nai badu beintzat, zeregiña: Lenengo ikasi, gure nortasunean sakondu ta beti egi billa jarrai; gero, erbesteko ideoloji ta bizibide egokiak gureganatu, gure izakerea apaindu, jantzi ta obetu, baiña ez kanpokoa artu ta etxekoa baztertu.

Orrela zintzo jarraitzen badogu, gure erriak Gotzon asko izango ditu, ta orduan, bear bada, aspaldiko ametsik eder ta aundiena lortu.

EUSKAL-IDAZTIAK DURANGO'N

Igaz baiño geiago saldu, ta geiago izan gara aurten salketa onetara joan garanok. Aurreko egunetan, aizean bazan zerbait aruntz bultzatzen ginduzana, bertara arte baiña, ezin izan gendun garbi asmatu. An, ber-bertan, gure asma-ezin ori argitu jakun, bertako idazti-barri ugaritasunakin aurkitzean. Zabalkunde aundirik barik eratua izan dalako-edo ez gendun orrenbestekorik bururatzen, ta ba-zan an zer ikusi, zer aztertu, ta zer erosi, sakela kilikolo ipinteraiño.

Ori alde batetik, eta bertan eta inguruan dantzaldiak eta jaiak, ezertarako astirik bage, arrapalada baten joan yakuzan ordu laburrak.

Zein aipatu ta goraldu, ez da idazlearentzat lan erraza! An ez ziñanentzat baiña, zerbait azaltzeko nakarre ona ta, ara lenengoz nere barru-barrutik diñotsuedana: urrengoan joan eta ikusi, ez dozue arratsalde obarik erraz igaroko. Ara ba, ori ta gero zerk ikutu ninduan sakonen esan bearko dautsuet. Dantzarik galdu gura izan ez ba'neban be, ta diskoen soiñu zoragarrietan ameslari gelditzen ba'nintzan, euskal-idazti barriak eta zar barrituak eragin eusten benetan.

Ta erbi-txakurra lez, asi nintzan musturrak aurreratuta, ea zerk urteten eustan begira, ta ala bearrez, lenengo ikusi nebana «Bizkai'ko Euskal Idazleak» izen-buruagaz Zarate jaunak egin dauskun bilduma ausnargarriak lotu nindun, lotuko ez ba? Ba-dau onen azalak dei oargarri berezia!



Kili-Kili naz.
Bilbo'ko S. Anton zubi ondoan jaio eta bertako eleizan bateatu ninduan osaba abadeak Kili-Kili izenaz.
Euskeraren alde egiteko ekarri ninduen mundura aitak eta amak.
Sendi edo famili aundia gara Kilitarrok Euskalerrian.
Anaietatik zaarrena neu naz.
Nire urrengoa Naparroa'koa da.
Gero, Gipuzkoa'koa... ta abar.
Anaitzat eta arrebatzat artzen dodazanak millaka dira Euskalerrian!
Oneik dira
euskeraz irakurten eta idazten ikasi nairik
SARIKETA NAGUSIAN sartzen diran
ume ta gaztetxo euskaldun zintzoak.
Lengusu-Lengusiñak be asko dodaz.
Ene, zenbat!
Oneik dira Bilbo'n eta errietan
laguntzen dausten neska-mutil gazteak.
Izeko ta osabak be, ba-dodaz.
Oneik dira Kilitarren ardurea artzen daben andra-gizon elduak.
Aitabitxi ta amabitxi geiago nai neukez.
Oneik dira eskupekoak emoten daustezanak gozokiak-eta erosteko. Baiña, nik...
itsulapikoan gordeten dodaz.
Zertarako?
SARIKETA NAGUSIAN sartu
ta LAN ta LAN egiñaz
saria irabazten dozuenok
udan, eskursiñoan, ortik zear eroateko.
Nai dozu nire sendi edo familiko izan?

KILI-KILI'K

BIZKAIKO EUSKAL IDAZLEAK

Aurrean neban gazte ari, galdera: —Barria ete da idazti au? —Izango ez da ba, arek erantzuna, atzo bertan etara genduzan irarkolatik! —Ta au? nik. —Ori be labatik urten barria dozu, Pujana jaunak egin daben Bizkai'ko aditzaren azterketea.

Asi nintzan zenbat au ta zenbat ori'ka, ta —Beste ori? Bitartean gazteak igarri eustan dirutik urri nenbillela, ta galdetu: —Uste dot zu bilbotarra zarala, ez da? —Bilbotarra ez, baiña Bilbo'n bizi naiz, nik. —Ba, berak, Gipuzkoa'tik be etorri dira idazti eder asko, ta errezago izango dozu, gaur arei erosi ta ordaindu, ta biar edo gura dozunean, zatoz Bilbo'n gure etxera ta an aukeratuko dozuz gura dozuzanak. Mutil, esan nautzan, ez jakiat orrela asko salduko doanik, ni baiña biar illuntzean zuenean izango nok. Ta artu neutzan bere txartela: Distribuidora San Miguel, c Torre, 3-1.º, **ta bai joan bere biaramonean bertara ta besakada bat liburu etxeratu.**

Aukera aregaz, beste salketa leioak ikusten joan nintzan. Lizardi'ren «Biotz-Begietan», Itxaropenanean, Lizardi'renak ososorik barriz argitalduta, a bere sakelera! «Giza Soiña», aspaldi daukat etxean, «H'gabeko Umorea» baiña erosi egin bear.

La Gran Enciclopedia Vasca'n be beste egotaldi luze bat. Azkue'ren iztegia lagun aundia izan dot ogetamar urte oneitan. Baiña Kerexeta'ren berezia, ez, ta au be etxean bear, ta zelan ez, «Peru Abarka», lengoa izan arren arasan. Donostia'ko Edili'ren «Iztegi Berezia» ta «Bertsolari Doñuak» diskorik politenetakoa. Auspoa'renak danak daukadaz lendik. Estornes-Lasa'nean aitu nebazan nere atzenengo txanponak eta an jarri nitzan begira lagunen bat ikusten ete-neban, zorretan eskatzeko. Urrengoan, eta urrengo au Arrasate'n ei da Lotazillaren ogeiruntz, sakel berotxoagoaz noa.

Zerbait jakin guran, asi nintzan batari ta besteari zer saltzen zan geiago galdezka, ta ara zer jakin neban: Geiengeien aurrentzakoak, ipuiñak eta ikasgaiak: Oñatibiaren EVA. Ipuiñak; Etxebarria'ren Perrault eta Andersen'enak; Lasalle'tarren «JO»; Peña'ren «Xabiertxo»; Arrinda'ren «Oto ta Pototo«; E. Vasca'ko «Mari Errauskin» ta «Paitakume Itxusia»; Euskerazale'ko «Aurtxoa» biak eta «Nora Zoaz»?...

Aundietan, zelan ez? Azkue'ren iztegia; lenago aipatu doguzan Zarate ta Pujana jaunenak; «Biotz-Begietan»; Auspoa'ko ale pilloa; Kuliska Sorta'tik azkenen argitaldukoak; «Peru Abarka» barria; eta Onaindia'ren Milla Olerki Eder orretik ekarri ebezan guztiak.

Saltzaille guztiak pozik ziran, ez dirua erabilli zalako bakarrik, au bere bearrezkoa dala barririk etarako ba'da, euskal-idaztietarako zaletasuna ugarituta agertu dalako, ortik eta irakurle geiago izatera, bideak zabaldu dirala dirudi.

Orra, arratsalde zoragarri baten ikusi eta entzundakoak.

BEIZTEGI'K jasoa.

«THE HIT PARADE»

Euskal diskoen salketa neurria

1970'ngo Urrillaren amaieran egindako zenbaketa osoaren ondoren, «TXORI TXIKIAK» abestia izan da garaille. Ara emen lenengo lauren lerroketa:

1.—«*Txori Txikiak*», *Oskarbi'k*
2.—«*Ni ez naiz ni*», *Unsain'ek*
3.—«*Ez kanta beltza*», *Lertxundi'k*
4.—«*Barberak esperantza*», *Oskarbi'k.*

Juan Manuel Ares jaunak diñoskunez, Oskarbi pasaitar taldea eta Unsain'dar Pernanda izan dira juan dan il orretako indartsuenak, Oskarbi'k iru disko sartu dituala lenengo zaspiren artean.

EUSKERA

JOSKERA

Esakuntza baten itzak ber-berak izan arren, esan-gura (esakizuna) bestelakoa izan daiteke.

Adibidez:

1.—**Atzo ni** menditik **etorri nintzan Perugaz.**
2.—**Atzo** neu **etorri nintzan menditik Perugaz.**
3.—**Atzo ni** Perugaz **etorri nintzan menditik.**
4.—**Ni Perugaz menditik** atzo **etorri nitzan.**
5.—**Atzo ni Perugaz menditik** etorri **(egin) nintzan.**

1'goan, nundik **etorri nintzan itaunari erantzuten dautsagu.**

2'goan, nor **etorri zan itaunari.**
3'goan, nogaz **etorri nintzan itaunari.**
4'goan, noz **etorri nintzan itaunari.**
5'goan, atzo zer **egin neban itaunari.**

Itaun orri erantzun dagion berbeari itaun-gaia (elemento inquirido) deritxo. Ta berba ori beti-beti aditzaren aurretik doakizu, bitartean ezer ipiñi bagarik. Gazteleraz aditzaren ostean ipintzen da geienean. Euskeraz iñoiz be ez. Garrantzi aundikoa, beraz, esakuntza baten esan-gura zein dan jakitea, esan nai oni dagokion itza (edo itzak) aditzaren aurretik eta ondo-ondoan ipinteko.

Ezezko esakuntzatan (frases negativas), itaun-gai ori beti «ez»a da.

Esate baterako:

1.—**Ni** ez **naz (enaz) Peru.**
2.—**Peru** ez **naz (enaz) ni.**
3.—**Peru ni** ez **naz (enaz).**
4.—**Ni Peru** ez **naz (enaz).**

Esakun onein esan-naia bardiña da.

PUXANA

«AIN ZUZEN»

Kamiñazpi'ri

Azken aldi ontan askotan agertzen dira, bai, zuk diozun erako esanak. Eta zuk diozu: «Nere belarrietan «ain zuen» *ori ez da sartzen. Neri era ez zait ongi erortzen. Erdarazko «casualmente» itza esateko, gure erriak:* Ez ustean, uste ezik, *eta* uste izan be, *erabiltzen ditu, baita* «uste barik» *ere.* «Precisamente» *y* «justamente» *esan nai dute zuk aipatzen dituzunak, nere ustez.*

...«atera naz ta ain zuzen atarian beragaz tope egin dot»... atera naz eta ara! atarian beragaz tope egin ez dot ba! Onela esango luke erritarrak.

...«Gurutze deunaren eguna ain zuzen». Gurutze deunaren eguna baizan ba, esango luke noski erritarrak.

«Gu beste garai baten bizi gera ain zuzen». Gu beste garai baten bizi bai gara ordea». Gu beste garai baten bizi gara-ta...» Onelakoak esaten ditu erriak.

«Maria Karmen eta Maria Jesus, ain zuzen» Maria Karmen eta Maria Jesus bait-dira ba. Onelaxe alde askotara esan ditezke erdalkeri oien bearrik gabe.

Mendiburu'k bere «Otoitz-gai» etako liburuetan «alabaña» darabil, nere ustez, gauza bera adierazteko. Lenbiziko liburuan, 160-garren orrialdean dio: «...ain andia da, alabaña, ta ain bazter bagecoa gure Jangoico maitagarriaren izatea». Irugarren zatian edo liburuan, 10-garren orrialdean dakar: «amoriozcoa da, alabaña, Jesusec dacarren legea».

«Ain zuzen» ori gabe, alde askotara esan dezakegu, ortaz esan nai dana. Nere etxetik ateratzeko garai bere-berean; ordu artantxe irten (ateratzen) nintzan etxetik. Nik gura (nai) nuan salneurri ber-bera eskeñi zidan... eta:

Gaurkoz besterik gabe

INTZA'R DAMASO AN.

BIDEAK EZ DIRA JO-MUGAK

Euskaldunen jo-mugea ta bete-bearra euskerea indartu ta zabalzea da. Ainbeste urtetan iraundako berbetia ezin da gure zabarkeriagaitik bertan bera utzi. Euskerea berbiztuteko bide asko dagoz... Bideak eztira jo-mugak, bideak baño. Aukeratu daiguzan biderik onenak, eurotarik euskaldunok zabal ta errez ibilli daitezan. Gauza baterako ona dana, besterako kaltegarria leiteke. Neure eretxi apalez, ona emen bideok:

Lenengo.—Erriko izparrak aldizkarietan zabaltzeko ta lenengo irakaskintzea emoteko *txoko-euskerea* da berebiziko. Onetara erritarrak euskerea irakurri ta idazten sayatuko dira eta ganera guraso-semek izkuntza berbera erabilliko dabe, belaunik-nelaun datorkigun euskeraren katea eten eztaiten.

Bigarren.—Eskualde bakotxean bere *euskalkia* erabilliko dabe bai bigarren irakaskintzea emoteko ta baita eskualdeko «informaziñoa» aldizkarietan zabaltzeko be. Onela eurek euskerea obetu, sakondu ta indartu egingo da erriaren arimeaz.

Irugarren.—Euskalerri osorako diran gayak eta irugarren irakaskintzea emoteko euskera osoa erabilliko da, bai euskalkiak osotuaz, bai batuaz eta bai euskalki bat autatuaz. Irugarren malla au utsa izango da, beste lengo bi bideak oñarritzat artuten ezpadira. Erribako berbetea ezta ezer, txalo-yotzalleak bestetara oldoztu arren.

LARRINAGA'TAR GERGORI

BEGIAK IRIKI

Sarri dogu eztabaidagai euskaltzaleen eta euskal arerioen artean elizkizunetako izkuntza zein izan bear dan. Ta ez litzake ez ta baida sortu bear, erabakia ta betebearra baiño. Baiña, ba-dirudi banaka batzuk edo, egiaren garratza, asko ta askok ez dabela burua makurtu gura, edo-ta ez dabela norberekoikeria ulertu nai. Ez ta bai da'n ibilli barik, nola dan ta nola bear litzaken, obe.

Ta or, oraintsuki «La Familia Cristiana» deritxon aldizkarian, zer diñoan Katalunya'ko katalandar batek: Aita Santuak erri-izkerak esatean ez diarduala Españi'ko izkuntzen alde, munduko besteen alde baiño. Ezin dala ulertu erabaki ori, «lengua oficial» bat dabelako. Ederki gizon! Demagun; alabaiña, «lengua nacional» iru dabez. Ta Erroma'ko ta are geiago Erroma'ren asmoak beti ez datoz bat Errien asmoekin. Ango ta emengo «oficioak» ez dira bardin. San Pablo'renetik artu dituzun textoak alperrikoak dira. Itzetik itz artzen dituzu. Esana dakarskuzu gogora, esangurea alde batera itxita. Gaiñera, bertan esandako itzak itzez itz, itz utsetan ulertu nai ba'dituzu, baztertu egizuz. Arei gerkeraz eta orduko auziei buruz esan ya kezan. Ta zure ulertze estu ta medarra dala bide ez dabe balio gaurko egokeretarako. Amaitzeko auxe diñozu bazter dagigula tokiko izkuntza ta españeraz bakarrik egiteko elizkizunak. Ta txarrena, zuri erantzuten dautsun aldizkariaren egilleak arrazoia emoten dautsu onetara esanaz: «No vayamos a volver una vez más al cantonalismo de los Arévacos...» ta bla-bla... eurok esaten dabenez.

Tamalgarria, benetan, zu lako gizonak egotea, Idazteuna ta Erroma'ko naia ausnartu bearrean, edo nungo jauntxo baten izenean zaunka datorkiguzanak. Ta are tamalgarriagoa, kristau aldizkari bat aurrera atara al izateko, edo aldizkariak aurrera atara gagizan, Erroma'ko pentsakera bazter batera bota ta edozelako Arévaco-tar batek esanak onartuagoak izatea.

Nik auxe eskatuko neuskioe irakurlei: olako papel zantarrai bizkar emoteko. Obe Arevaco-tarren aldetik dian, Erroma'ren eskutik, orrein alderdian, euren ostikopetik baiño.

Bide batez gogoratu dagiguzan Batzar Nagusiaren puntu batzuk: «Diversi sermonis fidelibus proponatur deatur», «advocatis ad hoc, si opus fuerit, aliis etiam sacerdotibus, qui varias linguas calleant», «de cura pastorali peculiarium fidelium coetuum pro diversis singularum nationum vel regionum adiunctis».

Zer geiago nai dozu gizona? Zertara dator orain zure «lengua oficial» aren lelo aspergarria? Begiratu Erroma'ra, kristauen «lengua oficial» zein dan jakiteko. Ta gogoratu: Roma locuta est, causa finita est. Erroma'ren epaia, auziaren amaia.

Ori 1970'ko dagonillaren zenbakian dakar «La Familia...» ez dot izenik asmatzen. Ara, berriz, bagillaren zenbakian zer diñoan katalan ez dan batek «El Mensajero del Corazón de Jesús»en: sarri dabillela Katalunya'n, bere ogibidea dala-ta ta abadeak nortzuk eta zenbat dagozan eleizan, batzuetan erderaz eta beste batzuetan katalaneraz egin bear leukela. Erri txikietan ori erreza da asmatzen. Erri azi samarretan aurreztik azterketa bat egin ta kitu.

Ba-dakizu Katalunya'ko Arévaco orrek, agoa zabaldu baiño len begiak ondo iriki.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

Pozak eta kezkak

Ameriketako naiezak aundiak dira. Esatebaterako: Kanada'n, Quebec azkatu ala lotu nai dabenen arteko burrukea.—Arjentina'n, Peron'darrak, komunistak eta Montonero. deritxoen arteko arra-soiñuak.—Ekuador'en, Guayakil'go langille ta ikasleak.—Uruguai'n, Tupamaro taldeak izutu dituala inguruak.—Kolonbia'n, «Tiro-Fijo» jarratzailleak gudarosteakin burruka gogorrean.—Guatemala'n, Bolibia'n, Brasil'en, USA'n... zertarako jarraitu? Emengo aldian be naiezak: Or Isrrael, Egipto, arabiarrak, naiezegaz itota. Urrago Matasa ederra! Matesa.

—Eta Euskal-Errian?, galdetuko daust norbaitek.


—Euskal-Errian, matasa bi. Baiña izen polit bategaz ezagutzen da - poolita izena: BATASUNA.

* * *

Satorkumeak lanean dabiltz. Gure aldizkariari bizi laburrekoa, garrantzi txikikoa ta txotxolokeriz betea esaten eutsen batzuk, baiña... orain estutu dira. Or dabiltz sasi artean —oi daben lez— gure oiñarriak birrindu gurean atzetik... baiña gure aldizkari au ez da Euskaltzaindia.

* * *

Oraintzu, Arrasate'ko Euskal Jaietan, abeslari antzeko gitxi batzuk «Agur Jaunak» eta «Ogi Zerutik» abestu dabez. «Agur Jaunari» beste soiñu bat ipiñi dautsoe; «Ogi zerutik» ordez «ogi-lurretik» eta ondorengo neopaganismoa ezarri. Bietarik bat: edo asmakizun merkea ala elburu maltzurra. Biak batera ziur. Ori entzun arren baiña, Bilbo'ko eleiztar emakume negarti batzuk adurra dariela iraungo dabe... «Badakizu mutil onak dira-ta!»... Bai, geroak esango dau.



* * *

Bilbo'ko ikastetxe baten, euskerazko ikastaroan ikasleak mutikoak. Etxera itzuli da euretariko bat eta bere aitari itaundu: Zelan esaten da «hemos recogido 10 palabras de allí y de aquí?». «Andik eta emendik amar itz edo berba artu doguz, ta zuek zelan ikasi dozue?». «Jjjandik eta jjemendik jjjamar jjjitz jjjartu doguz». «Jasaus mutil, arabe ikasten abil i ala? Zekula alako jejeorik!».

Beste ikastetxe aundi baten antzera ikastaroa. Asieran, irakasle dan andereiñoak Axular (parkatu!) Lizarraga'ren idazkeran «h» esan eziñik ekin eutsan. Gero baiña, aztu jako ezinbestean, ta orain zoritxarreko izki ori idazteko bakarrik darabil. C'est très jolie!

* * *

Zeruko leiatillea txikitzen doa-ta, argia baltzagoa, noski. Ori dala, Perez ahhente 004 orrek ezin izan dau igarri zerbait: Sortu zanetik urteak zear, 400'etik geien-geienak zintzo, jator ta —ez *neuk* esana bakarrik— geure-geure jokatuak izan dirala. Atzenengo aldi onetan, ez koipe ta ez ozpin, ta a zelako ensaladea! «Sorrari, orixua» Eibar'en, Tolosa'n jatorrago noski, «zorrari». Ozpiña ostera, «alkarrekin dugun kidetasuna indartzeko» ez da? urondoko ur bitan biziten dakin arraiñari jarraitu ezkero bai.

* * *

Mahometano egin zaite ta «h» ori jarri bearko dozu beintzat, baita neska bi, iru, edo dozenerdiri ezkontzeko itza emon eta ezkondu al ba'dozu. Len «moroak» solora joaten ziranean asto gaiñean emazteen aurretik joaten ziran, bere jauntasuna erakusteko eta emeak lanean jartzeko. Orain, or bere aurrerapenak egin dira, ta asto gaiñean ba'doa be, emazteak aurretik bilatzen ditu... beti da norbait gaiztakeriz asmaketan izaten dana, ta onek diñoanez ez ei da aurrepenagaitik, isrraeldarrak jartzen dituen mina orregaitik baiño.

PIPER-ZIRI

EUSKAL-ERRITIK MUNDURA BEGIRA

Italia'k Mao eta bere Txina onartzen ditu. Salerosteetarako ministroa Hong-kong'era bialdu dau ta garbikiñak, berebillak eta egazkiñak salgai eroan ditu. Eretxiak gora-bera gizonak asarre ba'dira be, alkarregazko artu-emonen bear izanak urreratzen ditu; dirua ta dirua...

* * *

Gromyko emendikaldeko Alemania'n; Gromyko Batikanoan; Finlandia'n bakerako bideak zabaltzen; Polonia ta Alemania erdi besarkatzen. Zer ete dabil azpitik, ta zerk ete darabil adizkidetze onen bearra? Ta urragoko beste batzuk ez ete dira adizkidetasun orren azkuran sartuko?

* * *

Txile'n demokrazia bidez Allende jauna lendakari da. Bere lenengo ezkertiar gobernuan, batazbeste, 49 urtekoak izendatu dauz. Gazterik bat bere ez. Kistar-demokratak laguntza eskeiñi dautsoe eskumatarren indarkeriari arpegi emoteko. Txina ta Kuba'ko gobernuak onartu ditu, ez baiña beste eskumatarregaz apurtu.

* * *

Ipar-ameriketako auteskundeetan demokratak irabazle agertu dira, naiz ta batzuk bestera agertu nai. Ikusten danez Nizon'ek labanketa aundia egin dau. Kennedy'k bere senador aulkia gordetzen dau lasai asko, ta bere etsai Edmund Diniz'ek lege aulkia galdu zearo. Urrengo lendakaritzarako, nor aukeratuko ete dabe demokratak, Muskie ala Kennedy?

* * *

Bide-erdiko sorkaldean, Suez'en, 90 egunez geiago luzatu dabe guda bako epea. Lortuko ete da egizko bakerik? Judutarrengan ba-dogu zer begiratu ta zer ikasi! gu euren bizi izate naiaren alde gagoz beintzat.

* * *

Paris'ko L'Humanité aldizkarian, Muldworf psikologo jakitunak diñoana garrantzi aundikoa iruditzen yaku: Sexual arloan azke jokatzearen alde egitea iraultzaren aurka doala? gizarte neokapitalisteak bultzatua dala, gaztedia alperrik galduaz iraultza itoteko. Irakurri Iralleko 18 eta 25' garrengoak, ta ezin ba'dozu, 27' garreneko Le Monde.

De Gaulle il da, ta Europa'k eta Frantzia'k aurrera barri baten sartuko dira. Iru ille barru Frantzi'ko uri guztietan erri agintariak izentatzeko auteskundeak datoz. Pompidou'n asmoak, uri nagusietan gitxiena bere taldekoak garaille ekartea da, ta politiko kutsu aundia damotso auteskunde orri. Urietako agintariak izan dira beti gaurko laterri-buruen aurkako indarrik bizkorrena.

* * *

Kolera gaitz oker ori ez da zeatz galdu. Paris'n be agertu ei da, ta kontu aundia izan bearko da zuri baten oraindiño.

BEGI-BI

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

BIOTZA TA BURUA BURRUKAN

Zenbat itxaropen eta uste on austu ete dira gaztediaren barruan Euskalerrietan zear!

Biotz-bideari jarraitzearren zenbat buru-bide okertu edo apurtu!

Eta buru-bideeri bizitzan oñarri sakon bat ezartzearren zenbat ostikokada eta estutasun askoren biotzetan!

Ondo be ondo dakigu gazteok zer dan au, naiz ta gazte izan; eta ba-dakiguz onek dakarzan ondorenak be: Azpi-lana; ixilleko bearra, burutasun eta joka-bide ezbardiñak geure artean; danetariko eritxiak, ta ez danak onak: bai euskera, kristau-ikasbide ta ekintzetan... Ondoren garratzak erri-zentzunarentzat!

Gazte aroan, korapillo biur onetan sartu aurretik, buruko amets ta usteak eta biotzeko jokerak bat eginda doguz; baiña urteak joatean eta bizitzan gogarkeria ta ustelkeria agertzen yakuzanean, orduan, tente ezpagagoz, biotza makaltzean, buru-bideak aldatu egiten yakuz. Biotzeko indar orrek beste larrabatzuetara eroaten gaitu. Erriko larra orretan auzo-aker asko dabillela ikustean, bakoitzaren larratxora joten dogu, eta orduan joan ziran erri-min eta amets guztiak, maitemiñari edo diru-zorroari lekua izteko.

Euki be, biotzak alderdi ezezagun asko daukaz buruarentzat!

Usterik gutxien dogunean agertzen yaku biotzeko indar eskutua eta buruak ezin eutsi indar orreri, arrazoi asko eukiarren; biotzak eztau arrazoirik ikusten, itsua da-ta. Orregaitik esaten da: «biotzak arrazoi asko daukaz, buruarentzat ulertu-eziñak diranak».

Geuk be askoren ekintzak eta jokerak eztoguz ulertzen, buruaz baño biotzaz geiago dabiltzazalako!

Burua galtzen danean, barriz, jarririko bidea be galdu egiten da eta sarritan itxarondako elburua be bai.

Amaikatxoren agoetatik entzungo gendun:

Au egin bear juagu; Euskalerriko oiturak gaurkotu; gazte lokartuak ekintza batera itxartu; Jaungoikotasuna sendotu; euskera indartu; gure umeak erritasun bidean sartu, ta abar. Baña tamalez, gutxik be gutxik iraun dabe azkenerarte. Zergaitik? Gogorra dalako. Eta asko bideerdian geratu dira, lelengotan artutako eginbear errikoia guztiz osotu barik; buruaren asmakisun ta usteak, biotzak lotu ta okertu dautsezelako. Batean, len esan dogunez, maite-miñen bat biotzean dabelako, eta orrela, euren amets-bideak itsutu egin diralako.

Bestean, gogoz itxaropen orreik euki arren, bear dan beste kemen ta odol-bero biotzean eztaukelako. Eta orrela usteak amets-tegian gelditu yakez eta ezin eroan aurrera zentzunezko ekintza bat.

Beste batzueri, ostera, biotz-indar larregi dabelako, edo ume-sentzunagaz jokatzen dabelako, ego-aize larregi sartu yake buruan, eta or dabiltz, erri-kutsuari begiratu barik, euren buruak agertu guraz, maitakeri gaiok zabaltzen eta kanpo-aize kaltegarri guztiak Euskalerrian sartzen. Oneik zoritxarrez, Euskalerria zelangoa dan ondotxo be ba-dakie, baña erri jatorrari barik, euren buruetan sortutako erritxoari begiratuaz diardue.

Oneri, biotzeko jokera galduak, ainbat lelo-asmakeri sortuazo dautsee buru-barruan. «Erriko iturria erriarentzat da», baña oneik iturburu ori euren arlora eroan dauskue, ta erriko iturrian edanda, ba-doaz euren bide-ziorretatik, erri-mamiñetik aldenduaz.

Txepetx txori txikiari kukuak egiten dautsana: abian arrautzea, ta gero munduaren aurrean abeslari agertu. Ta txepetxak berekautan: «au eztok nire arrautzea». Baiña arrautza aundi, ori, naiz ta berea ez izan, berotu egin bear. Txepetxak eta gure erri gaxoak, biotz samurregiagaitik, sarritan iruntsi bear izan ditu kanpotik eta barrutik jatorkozan ezbear negargarriak.

Orrela, azpikeriz jokatuta, beste batzuen ekintzetan sartuta, naazte gogorrean jarri dabe erri guztia.

Baña burua argi ta garbi dabenak badaki zelango gurariak eta usteak dabezan.

Ta ez erriaren onari begira gagozanok bakarrik! Euskalerria, maitakeriz, askekeriz ta asmakeriz banandu ta ondatzeko laguntasuna nun-nai dago!

EGUZKIZA'TAR JOSU «Eguzki»

NORA ELDU GARA?

Gaur edozeren kritikak egiten doguz, batez bere euskaldunak euskereatzaz. Zer ta nor ta nundik aizeak joten daben jakin barik.

Neuri jaso jatan auxe, Gazte batetegaz asi nintzan euskera arloko gauzetan alkarizketa baten, eta berak esan eustan: «AGUR euskera batuaren aurka doa». Gazte orrek ziurtasun batetegaz esan ebala zirudin.

Nik erantzun neuntsan: «Zergaitik ikusten dozu AGUR euskera batuaren aurka?». Estakit erantzun eustan «baña gazte talde batetegaz egon nintzan ta arek esan eusten».

Esan neutzan orduan: «Zuk, irakurri dozu AGUR?» Erantzuna, «ezetz» ANAITASUNA? «Ezta» ZERUKO-AGIA? «Ez». Orduan, zelan esaten dozuz berba orreik?

Eretxiak, euskera batua lortzeko, ez dira izango bardiñak, baña ortik batasun baten aurka egotera sail aundia dagola uste dot. Lagun orren antzera gaur, zori txarrez, gazte asko dagoz. Gauzak ain azaletik ikusten badira ezin da kritika onik egin, ta gitxiago olango garrantziko gauzetan.

Sarritan ikusten dogu gure aldizkarietan burruka gogorrak dabiltzala, nik esango neuke burrukea baño eretxiak azldute bat dala. Izan leike alkarren eretxiak alkarreri ez dautsaguzala erespeta? Bai, izan leike beste orren beste, baña orregaitik ez dago zertan ikusi txakurraren lekuan otsoa.

* * *

Beste alde batetik irakurleeri azaldu gura neuskioez berba mingor batzuk, gure lagun ta abade zan Gotzon'egaitik esandakoak: «Txotxolo bat zala» Nik ez dakit ziur nor zaran, baña ziur nago AGUR'eko irakurleren bat izango zarala, zintzoa ez bazara be, nik neure izen abizenak or jarriten dodaz emen esan neikezan gauzak batoren bat minduten badabe be. Persona orrek ba ete dak izer dan euskalduna izatea?

Ez ete da izan naikoa bere azken agurra egin eutsen 3500 lagunen aitorkera? Ez ete dakizu oraindik Mañu'n oroitzapeneko mezatan 3000 lagun baño geiago batu zirala? Au ez badakizu, nor zara zu, euskal erriko gizonik langilletarikoari kritika ori egiteko? Zintzoa ete zara zeure izakeran? Nik ez dakit ziur nor zaran len esan dodan lez, ta ezin neike geiago esan, baña bai gogoratu irakurleeri, ta batez bere laguneri, erantzun deioela esanez nor izan dan gure Gotzon.

GOIRIGOLZARRI TAR XABIER'ek

Bilbo'ko ikastetxe nagusian

Aspaldian sartu nintzan Ikastetxe-Nagusian. Ikasteko gogoz beterik; gizona zer dan ikasiko nuela pentsatuz; gizona ta gizarteari serbitzeko era onena aurkituko nuela ustez... Bañan, bai zera! Ez nuen asti asko eman bear izan, orrelakorik aurkituko ez nuela ulertzeko.

Nere pentsakera amets bat besterik ez zan. Ikasteko gogoa ta gizon guztiei laguntzeko asmoa kendu nai dituen norbait baldin ba dago, Ikastetxe-Nagusia du ori irixteko toki ederrena.

Onela ote da? Iritzi au, ez ote da zoro baten iritzia? Edo-ta, egia ote da? Eta egia baldin ba da, zertarako degu Ikastetxe-Nagusia?

Nik bezela pentsatzen ez ba dezu, goazen Bilbo'ko Ikastetxe-Nagusiara! An ikusiko degu arrazoia dedan ala ez.

* * *

Au da gure Ikastetxe-Nagusia. Ez da aspaldikoa, leen, naiz eta iksatola batzuek izan, Valladolid'ko Ikastetxe-Nagusia bait genuen aien buru. Baiñan orain ez. Orain dala bi urte Bilbo'koa eratu zan eta danok pozik artu genuen berez merezi genuen eskubide au.

Nerekin datorren lagun-ikuslea arritzen da ta ez du siñisten nik esan diodana. Au izan al diteke Bilbo'ko Ikastetxea? Une txiki bat ixilik eman ondoren, begiratzen nau. Bildurrak dago, bere ezjakintasuna agertzen ausartuko ez ba litz bezela. Adarra jotzen ari ote nintzaion galdetzen dio bere buruari. Azkenean au esaten dit: «Aizak, Bilbo ez al zegok Bizkaian?». Eta nere baiezkoa entzun ta gero: «Eta Bizkaia ez al dek Euskalerriko errialde bat?».

Zer erantzun jakin gabe gelditu nintzan, adarra jotzen ari ote zitzaidan ez nenkielako.

* * *

Lagun onek zeozer artu nai zuela-ta, edantokia nun zegoen galdetu zidan. Nik ere ez nenkien, beste ikastetxe batean ikasten ari bait naiz, eta, jakiña da!, Ikastetxe bakoitza besteengandik urrutiago ez diteke egon.

Orduan, ikasle-sail bat ikusirik, aiengana joan giñan. Nik ba nenkien Ikastetxe-Nagusian ikasten ari dan jende gutxik dakiela euskeraz itz egiten eta erderaz galdetzeko asmoa nuen. Baiñan berak, gizajoak, ez zuen pentsatzen orrelakorik ta euskeraz asi zan: «Emengo edan-tokia nun dagoen...» Ezin butaku! Sail artako mutil bat asi zitzaion, keiñuz lagunduta: «Nosotros... no saber... English...»

* * *

Edan-tokiara ginjoazela, leen ikusi genuen mutil-saillari buruz jardun zitzaidan nere laguna: «Bilbo'ko Ikastetxe-Nagusian, ain ezezaguna izan diteke euskera?». Bere errian entzuna zuen Bilbo'ko jende geienak erderaz itz egiten zuela, baiñan euskera ta beste izkuntzak bereizten jakingo genuela pentsatzen zuen.

Itz egiten ari giñala, beste lagun bat etorri zitzaigun. Bera ez da euskalduna, bere etxekoak, euskaldunak baldin ba dira ere, ez bait diote euskera erakutsi.

Euskerazko ikastaro bat eratzen saiatzen ari zala esan zigun. Ori entzutean, zergaitik ez zijoan Ikastetxe-Nagusiako ikastarora galdetu zion nere lagun-ikusleak. Gizajoa! Ez zekien, euskerazko ikastaro bat nai ba degu, gerauek antolatu bear degunik! Eta ori irixten ba degu, iritxi baiño leen, zenbat oztopo igaro bear!

Berriz arritu zan eta auxe esan zigun: «Zuek, bearbada, ikasleak zerate; Ikastetxe-Nagusi au eratu dutenak irakasle dira edo irakasleren gogoa dutenik ez nintzake esaten ausartuko. Bilbo'ko Ikastetxe-Nagusian ikasi bearko litzaketen ikasgairik garrantzitsuena euskera dala uste det».

Eta leen galdetu zidana bururatu zitzaidan: «Aizak, Bilbo ez al zegok Bizkaian. Eta Bizkaia, ez al dek Euskalerriko errialde bat?».

* * *

«Zuek, BEARBADA, ikasleak zerate...», lagun onen esaldia da. «Bearbada» orrek galdera bat edo adierazten digu. Ikasleak ote gera? Ikusleak ez zuen asti asko eman, galdera oni erantzun gabe.

Edan toki artan jende asko zegoen eta, saillak osatuz, danak ari zitzazkion alkarri eten gabe itz egiten. Ze motako alkar-izketak ote ziran? Au jakiteko bide on bat ixildu ta entzutea zalakoan, ori eskatu zidan lagunak.

Ikusleak nolako alkar-izketak zituzten ez zekien, baiñan susmo bat bai, ori ba zuen. Gure ixiltasunean gizarte, gizona, aien etorkizun, indarkeri, langille, erria, euskerari eta buruz itz egiten entzungo zuela uste zuen. Eta gai auetaz ikasleak zer iritzi zuten jakiteko irrikitan zegoen. Ori izango zan gauza ezagungarria!

Ni bere arpegiari begira ari nintzaion. Asieran, arreta aundiz entzuten; geroxeago, pixkanaka pixkanaka, illuntzen asi; azkenean... irten arazi nindun. Zergaitik? An zegozenak laister erakutsi bait zioten eguneroko ikaskaia! Ura zan bakoitzak nai zuena esateko askatasuna! Azkenengo igandean zeintzuk ziran futboleko jokaldiak irabazi zituztenak, abesti berriena ta abeslari ezezagunaren izena zeintzuk ziran, eta tankera ontako nai aiña gauza benetan ondo zekiten. Eta jakintza ontatik aien alkar-izketarik onenak ateratzen zituzten. Aiek ziran eztabaidak!

Edan-tokitik irtetzerakoan, ia futbol, abesti berriak edo ye-yeak eta abar ikasgai garrantzitsuenak ziran galdetu zidan lagunak.

* * *

Nere lagunak Ikastetxe-Nagusian bere ikasketak egiteko asmoa zuen eta norbaitek izan dezaken kezka berbera zuen. Izan ere, orrela baldin bada, zer egin? Nik emen emango dedan erantzun berbera eman nion.

Ikastetxe-Nagusiaren giroa orrela izan arren, ba dago beste giro bat ere, gutxien batzuk osatzen duena. Ikasle auek benetakoak dira, bere ikasketaz gañera beste asmo asko ere dutenak. Aiek dira euskera ikasi ta erakusten dutenak, gizonaren alde lan egiten ari diranak, ikasle guztiei beste asmo batzuek ematearren itzaldiak eratzen dituztenak.

Ikastetxe-Nagusian sartu nai ba dezu, jo zazu aiengana. Oraindik dagoen lana aundia da, ta, gañera, ez da batere erreza. Bañan egin bear dan lana da.

ZARRAOA'TAR IÑAKI

ATOZ LAGUNTZERA

Erri-artean, geienetan, alako alde nabarmena agertzen da or eta emen; era guztietako aldeak: bizikerako, jakintzako ta abar, bata besteagaz zer ikusi aundiagaz baiña.

Erri xearen langille, lugin edo arrantzaleen girotik ikasienera bide biko jakintza-aldeak agertzen yakuz bizi-bizi: batetik, bitartea zabaldu ta sakondu egiten da; bestetik txikiagotzen urreratu. Bide bion izatea lanetik dator, jakitun eta ikasleak nundik onartzen daben lana, bide bata ala bestea letorke.

Lenengoa zear, bitarte aunditzetik doana, ikasiak bere ikastaldiko jakiñen giroa aurrera daroala, errirako lanean diarduanean, urriñera doa igesi.

Bigarrenean, beste aldera, bere ikasketak erriaren ganorara itzultzen alegintzen dala, onek ulertu dagian orretara lagundu ta eratzen dabela, tartea maillaka txiketzen dakar.

Gure auzian, diñogun ori dagokiola, euskerea indartzerako bear dan lan gogorra dala-ta, erriarengandik alderatzeak dakarren gal-bidea, topin artean asmatutako euskera baten eta errikoaren bitartea bat ezin egiteak daroan arriskoa, gogoan bizi-bizi bear doguz izan, eta jakille garala, olakoetan ez jausteko neurriak jaso.

Euskereak, izkuntza geure geure onak, akats asko ta alde larregi daroaz bere izatea zear batuta. Eragozpen oneik zuzendu ta gai ori sendatu bearrak dira, orretarako baiña, osagaia ezarriko dautsagu, jokabide bat aukeratu, gaitza indartzeak lekarran baztertu bearretik azkatzen aleginduz.

Bearrezkoa dogu, ta ez edozelan, aldizkari, izparringi ta idaztietan datorrena erriak ulertzea, ta epeari bere neurriak jarrita, okerrak zuzentzen erakusteko egoki izatea.

Uler-gaitzak litzakezan idazlanak, euren onik ba'daroe, erriak ezesten dauz, ta era baten utsean geratzen dira. Ea ba, aurrera!

AZKARRETAZABAL'TAR JON

ABESTI LEIAKETAK ARRASATE'N

Arrasate'ko «DANOK» eratuak

I.—Zortzikoteak

Iru ataletan. Lenengo bietatik sei talde edo otxote garaille izentatuko dira, ta irugarrenean sei orrein artean txapelketea erabaki.

Lenengo atala, Lotazillaren 6'gnean, Gazteiz'ko «Guridi» antzokian, eguerdiko amabietan, eta bost zortzikote abeslari.

Bigarren atala, Lotazillaren 13'gnean, Iruña'ko «Gaierre» antzokian, eguerdiko amabietan, eta saspi zortzikoteren abestiak.

Irugarrena ta azkena, Lotazillaren 20'gnean, Arrasate'ko «Gurea» aretoan, eguerdiko amabietan, ta lengo atal bietako aurrenengo seiren artean norgieagoa.

Sariak, lenengotik saspigarrenera; 25 milla pezeta, 20, 15, 10, 7, 5 ta 2.— Maipurukoak: aita Sabino Salaberri; aita Jose Iturria; J. Arzamendi jauna ta aita Aurelio Sagazeta izango dira.

II.—Abesti Barriak

«Danok» alkarteak eta Loiola Irratikoak eratuta, ta Lankideen auzo aurrezki ontzia babesle dala, abesti ta soiñugilleeri egin dautsen deia jaso dogu, ta emen dakarguz dei orretik zeaztasun batzuk:

Urte onen azkenerako, «Danok», Resusta 33, Mondragón'era bialdu bearko dira lanak, ezizenaz izenpetuak, ta egilleraren ezaugarriak beste azal itxi baten jarrita, oi dan lez.

Aukeratzen diran amasei abesti onenak, orkestatuak izango dira Urtarrillaren 20'tik Otsaillaren 28'ra bitartean, bai egilleak berak eginda, naiz eratzaillen arduran, onetara gura izan ezkero 3.500 pezetaren truk egingo litzake.

1971'ngo Orril eta Bagillean, amaseirok jaialdi berezietan abestuko dira, Donosti, Gazteiz, Iruña ta Bilbao'n.

SARIAK: Lenengotik seigarrenera; 50 milla pezeta, 25, 20, 15, 10 ta 10, ta amaseirarteko beste guztieri 3,5, bakoitzeko.

Juan Artzamendi jaunaren zuzendaritza pean osotuko da epaimaia.

KONTU - KONTARI

Illobea Itaunka

Illobatxu bat daukot, beste askoren artean, txolin utsa, barritxu utsa. Aren itauneri erantzutea ezta erreza izaten.

—Aitita, illargiak zer dala-ta argi egiten dau gabaz?

—Ba... illunpe itzalgarria guri zerbait arinduteko.

—Orduan... eguzkia zertako urteten da egunaz? Oba leuke gabaz urtetia. Esteritxozu?

—Txotxo... ez egidak korapillorik asmau.

* * *

Aitita; sarri aitatu oi-daustazun Santi-Txiki'ri, zer dala-ta deitzen eutsoen orla? txikitxua zalako? erkiña zalako?

—Erkiña? ez orixe! A gaztetan mutil morrosko ederra izan zan, eta... gizon egin zanean, bizar-baltzdun gizon itzaltsua; buru argi ta biotz aundikoa. Baiña aitaren izena Santi zalako, Santi-Txiki deituten eutsoen. Ill onen 25'ean bete dira 67 urte bera il zala.

—Aberatsa ei-zan, ezta?

—Bai, aberatsa zan, baiña arek ez eban maite aberastasunik; bera sortu zan zerupeko Erria eban bere maitasun bakarra, ta Erri ori itxarrazteko eralgi ebazan ondasun guztiak.

—Ta zertan eralgitzen ebazan ba?

—Euzko-gogoa piztu-aziko eben izparringiak egiten: Egunerokoak, asterokoak, aldizkariak, egutegiak, izendegiak...

—Santi-Txikik bai al ekian euskerarik?

—Ez ekian; baiña bere Erriari eutsan maitasunak bultzauta ikasi egin eban. Eta ez bakarrik, beste askori irakatsi be bai. Ez zuk lez; zuk euskeraz jakin eta erderara joten dozu. Arek, bestekalde; erderatik euskerara jo eban. Eta euskeraz ekialako, aldun egin eben, diputadu.

—Zelan ba?

—Izkirimiri bat edestuko dautsut: Aldungai autartu eben Gernika'ko erkitik. Asi zan autarki billa, boto billa, urirk-uri. Jai arratsalde baten jo eban Gautegiz-Arteaga deritxon uri politera, baserritarrei autarkia eskatzera. Oneik, pozik entzuten ebezan Santi-Txikiren zegaitiak. Baserritarrak aulan diñotsoe: «Ara; zure etsaiak, autarki ordez, bazkaria ta diru pilla aundia eskintzen dauskue. Baiña, zuri, bazkari utsagaitik emongo dautsugu».

Santi-Txikik erantzun eutsoen: «Nik, edontzi bete ur be eztautzuet emongo. Ni enaz etorri gizonak erostera; ni, euskal-gizonen gogo garbiaren billa etorri naz. Nai ba-dozue agertu egiztazue gogo ori, ta nai ezpadozue, saldu zaiteze».

—Eederra jaurti eutsen! Ta zer jazo zan aitita?

—Zortzi egunen barruan auteskundea ospatu zan. Arteaga osoak, batek be utsik egin bage, Santi-Txikiri emon eutson autarkia. Beste inguru guztiko urietan be bardin jazo zalarik, Santi-Txiki izan zan Bizkaiko aldunik indartsuena; indartsuena... erriaren bultzarik gogorrena ekarralako; jauntxo guztiak azpiratu ebazalako.

Eta Aldundian keiak! atara ebazan bizkaitarren eskubideak aldeztuten.

Ori ikusirik, erri osoa bere gogaien atzetik abiau zan, arra-arra!

Orduan ikaratu ziran jauntxoak, eta...

—Eta zer?

—Giltzapean sartu eben; espetxean. Emen, anarkista sinisge bategaz topo egin eban; bere burua jakintsutzat eukon gizon bategaz. Onek bai ekian, Santi-Txikik bere biotzean irarrita eroan ikurra Jaungoikoa ta Lagizarra zala ta... ikur ori urratu nairik, eztabaidak sortu eutsozan.

—Anarkisteak zer esaten eutson ba?

—Lagi-zarra gauza zarra zala, ta gauza barriak bear zirala.

—Ta... Santi-Txikik?

—Lagi-zarra baiño gauza barriagorik etzala mundu onetan. Lagi-zarra eztala idizarra, burdi-zarra; ezta abarka zarra be. Lagizarrak auxe esan nai ebala: Geure lagiak egiteko eskubidea; naiz gaur, naiz biar, naiz etzi; geure Erriari yagokozan lez: Gaur, gaurko lez eta etorkizunean, etorkizunari yagokon lez. Beti barri!

—Ooorixe gustau jata aitita! Neuri be esan izan dauste alakoren bat nere lagunak. Orain badakit zer erantzun, Lagi-zarra abarka zarra dala uste dabeneri.

—Ta... Jaungoikoatzaz, ene-ene! Ark emon eutsozan adibideak! Beko Jauna ta Goikoa maite dabienen ez bardintasuna ta... Jasaus mutillak! zelako zegaitiak! Luzeak diralako ta zuretzat zaillak diralako, laga egingo dautsogu arazo oni. Aste osoan jardun ziran gai orretzaz, gogor!

—Azkena baiño ezpada be, kontaiztazu ba aitita!

—Tiira ba! Larunbata eldu zanean, anarkisteak autorle ba eskatu eban. Illuntzi artan baita autortu be. Igande goizeko jaupa erdian, Jauna artu apal-apalik.

Eta ondoren, Santi-Txikiri, bere arrebeak, bitsa dariola eruan eutson txokolate, esnebero ta opil bigunarekin gozaldu eban anarkisteak.

—Gora Santi-Txiki! Ta alako gizona... il egin zan?

—Bai, il zan... Baiña bizi da oindiño.

—...!

—Zuk zeuk, nire erantzuna baiño zaillagorik esan oi daustazu. Beraz... kito!

ABELETXE

AGUR'ERI ERANTZUNA

Neure irakasle goragarria:

Pozik irakurri neban Agur bostgarren zenbakia, ale onetan diño zenbat ume sarituak izan ziran, eta ikusirik zelako lan andi ederra Kili-Kilik eta Agur'ek egiten daben eurari jarraitu bear dautsagu euskera garbi eta argiaren alde orain eta beti euskaldunak ba gara.

Emen izparran barruan bialdu deustazuz orritxu bi bata arpidetzeko eta bestea ni goralduten, baña lar be ba-diñostazu ni orrenbeste enaz ta.

Arpidetzeko orritxuagaitik diñotzut nire aita Agur'eko irakurlea dala lenengo ale-tik asita, eta esaten dau Agur illerokoa izparringirik ederrena eta garbiena dala, eta ganera egizalea baten esanda garbia H bakoa.

Agurrekoak burrukan dabiltzazala diñonari olan erantzungo dautsagu, euskaldunak euskeraz itz eta idatzi egin bear dogu.

Agur Agurreri beste baterarte eta Agur'eko idazleari eskerrik beroenak Agur aurrera geroago ta indarsuago eta bai ta be ugariago izan daiten.

BIDAURRAZAGA'TAR AITOR

KAIXIO KILI-KILI!



Alaxen agurtuten dot egunero gure mutiko izugarria.

Bera ikusi barik ezin egon izaten naz. Atsegiña da izan be benetan, bera lanean ikustea. Zortzi urte betetzeko daukoz eta ikustekoa da orren kemena.

Laster asiko dauan ikastaro barrirako kartel aundi bat tajutzen egoan; marrazki ederrari, alboetan idazkunak jartzen.

—Kontxo! —esan neutson gure mutikoari—. Marrazki ori zeuk ez zendun egingo!

—Ez —erantzun eustan apalki—; marrazkiak egiten dauzan osaba jatorra daukat nik, Jaunari eskerrak: Lander Gallastegi, etxegille ospetsua. Bera izaten da, gure aldizkariari jaiki berezia emoten dautsona.

—Idazki asko egunotan?

—Jaungoikoak bedeinka ala. Batzuek barregarriak; beste batzuek biotz-ikuitgarriak. Emen daukot bat, begiak ibai biurtu daustazana; ez naigabez, ederran ederrez baiño.

—Zer diñotsu ba?

—Entzun.

Eta 9 urteko neskatoaren idazki bat irakurri daust. Ezer kendu ta ezarri barik, auxe iñotson: «Kili-Kili maitea; Kili-Kili aundi ori: Eun peseta bialtzen dautsudaz, lagun-saritzat. Eun baiño geiago bialduko neuke, aitatxu baneko, baiña amatxu dabil biarrian etxietan garbitasunak egiten. Agur lagun biotzeko ori».

Irakurle: ume baten berezko esakera zoragarriagaz, landu bageko esakera orregaz, iñotsonak, neuri be begiak busti eustazala esaten badautsuet, eztiñotsuet guzurrik. Eredu ederra, ikusi ta ikasi gura dogunentzat!

Zer esan daiket idazki orretzaz? Ezebez. Itz gitxitan, umetxoak berak esan dausku guztia.

Agur Kili-Kili. Neure partez, bialdu egiozu mosu aundi bat Edurnetxo'ri ta gorantziak bere amatxo zintzoari.

ABELETXE

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik: **(Jarraipena)**

Urte batzuk olan igaro ziran, eskale ta txakurraren arteko maitasuna gero ta sengoagoa egiten zala. Ua izan zan Txo'rentzat aaztu eziñeko urrezko aroa. Trauski'ren osasuna baiñan, igarotako biziera garratzagaitik eta batez bere ardauak egindako ondapena bide zala-ta, aldatz beera amiltzen yoian, eta beiñola bere barne-muiñetan zerbait austen bezela yoiakola oartu eban, eta ezindurik, bideertzean yesarri zan txakurrak egiten eutsozan laztaneri yaramon egiteke. Gero, zerbait zuzpertuta, estalpe kutunena yakon, arrobiko etxolarantz ibillera kolokaz abiatu zan. Au bere tokirik naiena, aro otz eta euritsuetan etxola onen babesa billatu oi eban. Alde batean lastozko etzangia, aurrez-aurre leiotil argitsua, ta txoko batean kebidez buruturiko sutondo begikoa, egoitza onek eskiertasun eskeintzen eutson.

Illunabar itun eta otza zan arrobiko etxolara eldu ziranerako. Sartu baizen laister, Trauski'k zorroa lurrean itxi ta sua piztu barik oeratu zan. Oi bezela, txo bere ondoan yarri zan, baiñan gau artan gauza bakana, ugazabak ez eutson yaramonik egin... eta zergaitia yakin barik, naigabe izugarri bat bere biotzaz yabetu zan. Gauerdi inguruan, sukar batek atziturik, eskalea ameskaitzez beteriko lo artega batean murgildu zan, eta ugazaba olan ikustean, Txo'k negar-zotiñak bai'liran zaunka biguiñez bere naigabe bizia adiarazten asi zan. Gau osoa ta urrengo goiza olan igaro ziran. Arratsaldean eskaleari lo baketsu bat etorri yakon eta illuntze irian, Trauski bere sentzutasun osoen yabe itxartu zan.

Begiak zabaldu ebazanean, Leiotillatik etorren argi aularen pean barrukoa ozta-ozta ikusten zan. Ez zan besterik entzuten zakurraren zinkuriñak baiño, ta orduan esku dardartsuaz Txo'ren buru uletsua laztantzen asi eban, eta onela ari zala, ustekabez bere bizitzako noragabetasun eta ezereztasuna argi barri baten pean ikusi ebazan. Nun ziran Yauna'k emondako talentoak? Zer eskeiñi eikean yaiotzetik izandako doaien truk? Bildur aundi batek atzitu eban.

—Txo...! Txo...! —abots itoaz txakurrari esan eutson— Bildur naz, bildur naz... laister Yauna'ren aurrean izango naz eta kontu-garbiketa elduko yat... Begira Txo, nere bizitza guztian ez dot gauza onik egin. Sendirik ez dot, lagunik bere ez, ekintzak... nun dira ene ekintzak? Beti besteen lepotik bizi izan naz... ez da iñor ni maite nauenik... Maitasuna... bein orain urte asko nere erriko eleizan, maitasuna zeruko giltza dala entzun neban... zeruko giltza...

Ustekabez, Trauski'k txakurra bereganatuaz ia deadarka esan eutson:

—Baiñan nik maite zaitut Txo...! Leenengoz ikusi zindudanetik maite izan zaitut. Oroitzen zara Txo, gau artan leenbiziko aldiz alkar ezagutu genduenean? Eta gero... aldiaren igarotzeaz maiteago izan zaitut. Oi, zurekiko dodan maitasuna zerurako giltza izango ba' litzait... Yauna'k ar beza begi onez au nere eskeintza bakarra...!

Gero otz-ikara batek menderatu eban. Leiotillatik izarren dizdira ikusten zan. Gau otz-otza etorren eta laiño mee bat lurra besarkatzeko irrikan, polliki-polliki yatxiten zan. Lo-zorro baten mende Trauski'k Txo'ren iduneri oratuta iraucn. Alako batean, itxartu zan.

—Txo, entzun egistazu —itzok ozta-ozta entzuten ziran— laister yoango naz eta bakarrik geratuko zara barriz. Nik ez dot nai bizitzak gaizki erabil zagizan. Gogoratzen dozu Agiñalde basetxea? Bai, muiño baten egian datzan etxe pollita, bere intxaurrondoko erpiñean txepetx zaratatsu bat maiz txio ta txioka ari dana? Askotan izan gara ango labeko babes-pean lo egiteko. Oroitzen zara Txo? Begira ba... ni il eta gero yoan zaitez ara ta etxekoekin biziten geratuko zara, biotz oneko Agiñalde'tarrek poz-pozik artuko zaitue-ta...

Ixil-une baten ondoren eskalearen itz laiñotsuak ostera entzun ziran:

—Txo, otz naz, erdu neuganago...! Olan... ez zaitez yoan, emoidazu bero apur bat...

Gau ixillean izarren dizdir urruntsuak dardar egiten eban, etar lur-gaiñean eroritako intza izotza biurtuten zan. Pakea nun-nai, ez zan besterik aditzen etxolatik etorren txakur gaixo baten negarrak, bere ugazaba maitean alperrikako berotasuna emon naiean...

Urrengo egunean, goizean goizik egurketan ebillen Larregain auzuneko baserritar bateri, arrobiko etxolatik naigabez beteriko negar bezelako zerbait barrutik etorrela iruditu yakon. Ate erdoitsua zabaldu ta sartu zan. Etzangi bateko zeozer iratzarri naiean, dardarrez astindutako txakur bat egoan, eta orduan Trauski'ren illotza ikusi eban. Berealakoan errirantz abiatu ta eguerdi baiño lehen beste gizon batzuekin itzuli zan. Baiñan eskalearen gorputza eroan nai ebela, Txo'k ausikika asi eban ken eioen eragozteko. Azkenean gizon batek ostikada indartsu batez pilirikan bialdu eban. Txakurra luze samar kordegabe izan zan, eta bere einera etorrita gizonen atzetik bideratu zan. Illerrira eldurik illotza an itxi eben eta aldendu baizen laister, Txo bere ugazabarekin bildu zan ia erotuten eban naigabe etsi batez yabeturik.

Biaramunean Trauski obiratu eben eta gero danak yoanda, Txo bere ugazaba maite estaltzen eban lurraren gaiñean etzanik, eriotzaren begira geratu zan. Ez eban ezertarako indarrik, ez eta adiakatzeko bere; noizean bein soillik, barruko asperen bat eritxan aiene batez bere lagunari dei egin nai eban.

Ikastolatik Agiñalde'raiño edatzen dan bidea illerritik igarotzen da. Arratsalde artan oi bezela Mikeltxu ta Edurnetxu etxerantz abiatzen zirala, illerritik adiaka bat entzun bide zan. Mikeltxu'k sarreratik begiratu ta... ara nun zuri antzeko zerbait begiztatu eban.

—Ene...! —deadar egin eban— Txo Trauski'ren txakurra da...!

Au esanik, txakurragan ariñeketan oldartu zan. Txo'k ortzak erakutsi eutsozan mutilla uxatzeko, baiñan gaixoa aultasun utsaz ezin eikean ausiki egin. Mutillak orduan txakurra besoetan artu ta arrebarekin Agiñalde)rantz bideratu zan. Olan yoiala, noizean bein nagabeak eraginda, otz-ikara batek txakurrare bularra iñarrosten eban. Noizbait etxera eldu ziran eta umeak Txo su-ondoan laga ta esan umeek berotu ondoren, ia indarrez artu-aratz eutsoen. Onetara Txo sendotuten asi zan eta egun batzuk igarorik, gai zan etxe-inguruti ibilli ta yoranez beteriko begiekaz ain ondo ezagutzen eban gure araneko edertasun begiztatzeko.


Eta Agiñalde'n betirako geratu zanberak ez ba'ekien bere, ildako ugazabare agintza betetzen ebala. Orain gurean ez dezeren bearrik eta danok asko maite dogta bai berak etxeko guztiak, batez bere gu Mikeltxu xaloa. Baiñan...

Baiñan sarri biderantz so egiten ikusdot, ia bein edo bein bideko biurgunetberak ain sakonki gogoan marrazturik daukeskale baten irudi arlotea agertuko ete dan. Ai olan ba'litz...! Orduan zorionez gaiñezdana itxiko luke ta aren atzetik oldartuzan eta barriz aranean zear biok yoanlirake, ta gizon arengandik laztan bat bedrik artzekotan, bere bizitza pozik emonluke...

AGIÑALDE'KO TXEPETX



KIROLAK



IRURE-AUNDI

Obea ala Zapaltzaillea

Jaiotzatik daroagu lantzean beingo indarrak errebearra, ta aurtzarotik agertu be zeintzuk jolas doguzan maiteago. Ba-litzake norperegain izatea zaletasun orren erroa, ta orretatik, mutil eta gizon izaterakoan zein kirol bide artzen dogunetik, geure griñak zein maillakoak diran igarri.

Iru maillatan jarriko neukez kirolak, naiz zaletasunez naiz diru billa erabilliak izan:

Lenengoan; kirol garbiak, indar neke larregi barik, ta iñori jarki egiteke darabilguzanak: Mendigoizaletasuna, igeria, golf...

Bigarrenean; iñor mintzeko biderik berez ez daukenak, baiña une laburretan ez ba'da be, indarketa aundia eskatzen dakienak: Pelotea, tennisa, antxiketea...

Laugarrenean; kirol odoltsuak, batzuk besteak baiño geiago ba'dira be, beti baiña aurrean daukazun «etsai»a mintzeko bideak aukeran daukezanak: Ikubilketa, ostikoketa (amerikanoa batez be), eiza...

Euskaldunen kirolak geienetan, bigarren mailla orretakoak izan dira: Arrijasotze, aizkoratze, arraunketa, pelota, idi-dema... Ala ta bere, jokorako irugarreneko odoltsuak be maite izan doguz: Adari-topeka, oillar burruka, gizonak ez dabela beragandik ezer jartzen (dirua ezik), ez neke, ez izardi, ez odol.

Egiñalak egin arren, erri bakoitzak bere nortasunezko kiroletatik at, ez dau aurrerapen aundirik edo iraunkorrik egiten. Ikusi pelotan bertan, banaka batzuk ezik, onenak ugarien euskaldunak beti.

Ikubilketa ori be, ingelesak asmatua ta neurrietan lotua izan dan indarketa ori, ez da edozelan jokatzekoa, ez eta indar utsean oiñarritua; indarra bai, baita jakintza ta jatorriko sena be, ta orrenbeste ikasi dogu Cooper orren jokoa ikusi ondoren. Orra ba, Urtain'ek sutsu eta ausarti jokatu dabela diñoe, euskaldun seme bati dagokion lez, boseadore saillean baiña, galdu dala esan bear; ez zan gaztetatik orretan ari, ez eban bere inguruan odol-jokorik ezagutu ez eta au kiroletaratzeko neurri ta legekeak errigiroan aurkitu, ta ezin, bein gizon egitean, bat-batean orretarako aukera biribillik sortu bere zain eta bere adimenean. Galdu dogula uste dot boseadore lez, ikusi dogun guztiori urriñera begira osotutako asmakizunen bat ez ba'da, ta berak jakin bear kirol edo dalako orren bidezior orri jarraitzetik ezer onik lortu daben.

Gure kirolari, euskal kirolari begira auxe esan bear: onenbestean etxera etorriko dala, ta bera ain jator eta kementsu agertu izan zan gure kirol oneitan barriz ikusiko dogula sutsu, anai artean, eta gure zarrak eratutako bidean.

IZAR

PERNOD SARIA

Ba-dakizue izen onekin txirrindularien arteko sari berezi eta izen aundikoa ezagutzen dala, urtero lasterketa gorenengoetan egiten dabenakin aleak irabazten doaz, ta amaieran ale gein zenbatzera eltzen danak sari ederra izaten dau, ta txirrindulari onena lez agertu.

Len, orain ta beti, gizon bat izaten da urte batzuk zear danen gain, azken aldi onetan Merckx azpiratu eziña dogu jaun ta jabe. Ikusi daigun baiña zelako aldaketak izan dituan urtea zear:

Dagonillean, ludiko txapelketa jokatu ondoren onela egoan: 1. Merckx, 389 ale; 2. Ocana, 150; 3. Leman, 125; 4. Monsere, 91; 5. Zoetemelk, 90; 90. Van Springel ez zan lenengo amarren artean agertzen.

Urrillaren asieran, Bordeaux-Paris'en ondoren: 1. Merckx, 389; 2. Ocaña, 150; 3. Leman, 125; 4. Van Springel, 105; 5. Monsere, 91.

Urrillaren erdian, Giro Lombardia ondoren: 1. Merckx, 409; 2. Ocaña, 150; 3. Leman, 125; 4. Van Springel, 120; 5. Gimondi, 115.

Ta azkenez, Urrillaren amaieran, urte guztikoa osotzen: 1. Merckx, 409; 2. Van Springel, 190; 3. Ocaña, 178; 4. Leman, 125; 5. Gimondi, 115.

Ikusi daikegunez, Merckx izan da urtearen lenengo irutik bitan indartsuena, ta Van Springel, beste belgatarra a lez, ta berak oi daben eran, azken aldiko jauna. Ori, Pernod'en Super Prestige orrek erakusten dauskunez, ala ta bere, arrezkero, sari orretatik at jokatu diran azken lasterketetan, iparreldeko txirrindulariak agertu jakuz indartsu: dinamarkatar Ritter azkarra Lugano'n eta sueciar Petterson anaiak Barachi izenekoan, ta emen bigarren zirala Ritter ori ta Mortensen, au be dinamarkarra.

Italarriak makal erabaten urtea zear, ta ia ezebezean prantzesak. Onentzako be, ta eurentzat bakarrik, Pernod'ek beste sari bat eskeintzen dautse. Izen aundikoen lotsagarri G. Chappe'k irabazi dau 115 alekin, bigarren Poulidor, 91 ta irugarren Aimar, 88. Asarre aundia dabil prentziko kiroltzale onein artean eta neurri barri ta gogorrak artzekotan datorren urterako.

ALDATZE

JAZKERA BARRI ETA GALTZETORRATZEKOAK

Querricabeitia

Artecalle, 32 ◆ B I L B A O - 5 ◆ Urrut. 21 65 67

EMAKUMEA TA FUTBOLA

Idazle trebe ta zurra dogu Altuna'tar Josu. Urteetan diardu Basa-Jaun izentzat artuta ainbat aldizkaritan idazten. Adiskide mamia dot txikitatik eta pozik be pozik irakurten dodaz bere idazlanak. Atzerrian Amerikan nintzanean (urte mordoa joan dira) be poz aundia neban bere lanak irakurtzean.

Zornotzakoa dan arren jaiotez, Galdakanon daroaz bere bizitz-urterik geienak eta Galdakano nire erria maite-maite dauala sarri agertu dau.

Lantxu bi argitaratu ditu urrillako AGUR'an: «Emakumeen ostikoketa» deritxona bat. Laburra baiña esankorra. Emakumeen arteko ostikoketa-futbola lenengoz ikustean arrituta egoala diño: «Bai, ba, ordurarte guk iñoz ez genduan neskatillerik ostikoketan ikusi, etxeko txakur apalari edo katu lapurreri ostikadan bat emoten izan ezik».

Neska lirain, lerden areik kementsu ta polito jokatu ebela autortu ondoren diño: «Egiz, baiña gure ustez oñezko pelota, ostikoketa, ezta kirol egokia emakumeentzat, gizonezkoentzat baizik, gizon kiroldar zintzuentzat».

Egi aundia. Futbola ez da emakumeentzat, ezin izan leiteke. Gaurko emakumeak gizonen parean egon gura leukie. Eziña. Jaungoikoak ezbardiñak egin ebazan gizona ta emakumea. Elburu ezbardiñak emon eutsezan gizarteari buruz. Emakumea len lez etxean sartuta ta zapalduta egon bear dala? Ez. Olakorik ez. Baiña euren tokian bai. Itzala-errespetoa emakumeari naiz ezkondua naiz ezkongeia izan. Ontzat artu bere eskubideak, ez zapaldu bere nortasuna. Baiña sarritan emakumeak eurek zabaltzen dabe bidea euren eskubideak zapaltzeko. Gizonen antzeko azaldu gurarik euren emakume-izatea galtzen dabe. Mini-gonak eta maxi-gonak ondo dagozala? Txarto dagozala? Danetariko iritxiak sortu leitekez. Baiña emakumeak gizonak lez azaltzea, gizonaren itxuran agertzea, gizonari bakarrik dagokiozan bizi-erak artzea, ori ez, ori ezin artu ontzat, ori ezetsi egin bear da.

Lan batzuk gizonari bakarrik jagokoz. Beste onenbeste esan daikegu jolas eta kiroletaz. Jolas eta kirol batzuk bai gizonezkoentzat eta bai emakumezkoentzat egokiak izan daitekez.

Kirol asko ostera kaltegarri izan leitekez emakumearentzat. Emakumea beti be gizona baño makalagoa da, ez dau gizonaren indarrik, kemenik, geitasunik, trebetasunik.

Emakumea ez da lan gogorrak egiteko. Adibidez fabriketan-da... mendietan-da, itxasoan-da... egin bear diran ainbat lan, emakumeak ezin egin leikez. Bere gorputza ez da gauza.

Kirol batzuetan be indar aundia egin bear da. Kirol batzuk oso neketsuak dira. Adibidez boxeoa, pelotea, futbola, esku-baloi-jokoa... Ganera onelako kiroletan ibilteaz emakumeak bere emetasuna, emakume-izatea galtzen dau.

Bere osasunaren eta elburuaren kaltezkoak be izan leitekez. Azpaldion futbol-talde asko daukaguz. Or yabiltzuz emakume-futbol-taldeak jai-egunetan-da erririk-erri. Ez al'da au neurritik urtetzea? Ea gero gitxien uste dan egunen baten mutillen aurka jokoan ikusten doguzan. Emakumeak bere zeregin eder-onurakorrak daukoz gizartean. Jolas-kiroletan be parte artu bear dau, ezin ukatu leikeo.

Lapikoa gertatu ta atondu; maia jarri ta janaria banandu; jantziak garbitu ta josi; oñetakoak txukundu... besterik ez? Ez... ez... aldiok zorionez joan ziran; emakumea gizona lez persona da; soindun, adimendun, arimadun; artu-emonak izan bear dauz gizarteagaz; jolas egin bear dau, ez beti etxe-barruan egon. Gurariok berezkoak, txalogarriak dira. Emakumea ez da zapaldu bear makalagoa, indargeagoa dalako. Baiña praka motz-laburrak jantzi, oski ta galtzerdi lodi-aztunak ipiñi ta izerdi-estuka narruzko pelota aundi-aztun bateri ostikoka, ori ez, ez urriñegi eroan.

Emakume: lirañagoa, ederragoa, samurragoa, maitagarriagoa izango zara zeure maillabarruan; beraz, zaindu egizu zeure tokia, zaindu zure mailla, zaindu zure emakume-izatea.

MUNIOZGUREN

MENDI-KIROLA SENDAGAI



Kurutzeta-Anboto

Orain aldi bat dala, urte bat edo geiago, Bilbao'n Gipuzkoa aldeko euskal idazle batek euskeratzaz ta jakintzaz, uste dot, itzaldi bat egin eban, ta gure jakintzak, eusko-jakintzak jakiña, aurrerapenik geiago egiten ez baeban, kirolakaitik eta batezbere ostikoketa ta, beraz, Atletik gaitik zala esan eta idatzi eban, itxututa daukalako gaztedirik geiena.

Ez gara eretxi bardiñekoak, eta ez diñogu Atletik'a aipatu ebalako, Real Sociedadea esan baeban be bardin esango genduke, ta arazo onetaz aldi artan ezer idatzi ez bagendun, AGUR lako izparringirik ez zalako izan zan.

Orain berrogei urte inguru, gaur baiño ostikoketa talde geiago ziran Bizkaia'n; txirrindularitza be askoz ugariago; pelota jokoa, zer esan bere ez, zenbat gogoratzen garan Batzokien Pelota-txapelketakin! ta, nola ez, mendigoizaletza? Ta iñork ezin leuskigu ukatu, orain baiño errimin geiago zala, ta eusko gaztediak, erriko arazoetan, ardura geiago ebala, arazoak obeto ezagutzeko azkatasun geiago ebelako bear bada, edo gaur baiño bizibide neketsuagoa izanik nagikeri gitxiago ebelako.

Kirolak, gizona, gizakia, soiñez sendotu egiten dau, gu baiño jakitsuagoak diñoskue, gogoz zuzendu ta biotzez ondu, ta seta jatorra osotuteko be, zenbat eta gogorragoa izan kirola, ainbat indartsuago, geiago. Mendi-kirolak barriz, jakintzan be aberastu egiten dau gizakia, bertatik dalako lutelezti, edesti ta gizarte jardunbidea. Lenengo, eusko lur maitegarrian, ta gero, beste lurraldeak ezagutzeko kirol garbi ta osasungarria dalako.

Egia da, ta tamalgarria izan be, aldi onetako egunkariak, irratiak eta urrutikuskiñak geiegi idatzi ta itz egiten dabela kirol batzuetaz, baita zezen-burruka ta garrantzi edo osasungarri ez diran beste gauza askotaz, gaztedia itxututeko gai ez diran baiño orretzaz. Askoz obeago izango litzake, bide orrein bitartez, gaztedia kirola berak egitera zaletuten aleginduko balirake; soiñez sendoago, adimenez argiago ta oituraz garbiago dalako kiroldar gaztea, ezer egiten ez dauena baiño. Ala, ez ete da ori egoki? Zorionez ainbat, eundaka, millaka dira eusko gazteen artean lizunkeritik alde eginda, astero mendira urteten diranak, bertako aize osasungarria artuaz gure lurraldeak ezagutzen dabiltzanak. Eta bide ortatik jarraitzen daben artean, ajola barik, gazte azkar kementsuak izango doguz.

Goazen mendirik-mendi
euzkotar gazteak,
goazen aldatza gora
mendigoizaleak;
Aixe osasuntsuan
bizitza indartzera
Aberri guztiari
agur egitera.

ALTUNA'TAR JOSU

EZIKETEA



IKASTOLAK

Ez dot ikastolari buruz idazteko asmorik izan, baña norberak nai izan ez arren, askotan, inguruko jazoerak bultzatzen gaitue; neuri bere beste orrenbeste jazo jat gaur.

Itxas ertzeko «club» baten senar-emazte mordoa alkar-isketan; «progresistak» eurak baña jakiña! «Altos Hornos» en lanean dabillenik bat bere ez; langilleen izarditik bizi diranak asko; langilleen irabazi apurrak, etxe bat erosteko aña, eunetik-irureun baño geiago kenduta artzen dauanik bat baño geiago; itz baten esateko «burges» taldea (ez Burgoskoa).

Alkondara guztiak ebai dabez... ta alako batek mini-falda dun emakume ule zuri batek ei diño «Arenaza be or dabil ikastolen aurka, Gotzai'agaz bat eginda ei dago, bere eskumako eskua ei da» (erderatik itzuli dot, erderaz zan alkar-izketa ta).

Ez naiz larregi mindu, Gotzai baten eskumako eskua baño txarragorik badago ta... baña, emakume aren «intenzioa» beste bat zan: Esameza zabaldu, gu gaiztotzat salatu, ikastolen kaltegarritzat azaldu! Eta neri zer?

Talde aretan nere alde be egin eben (eskerrik-asko) baña ez dot olako jente artean abogadurik bear, ezta nai be.

Nere jokabidea erakusteko lotsarik ez dot iñoiz izan. Gaur neure seme-alabaen etorkizunak arduratzen nau ta etorkizun orrek, arriskorik aundienak nun dituan edo nundik etorri leikiezan aspalditik dakit. Gizartea apurtzeko, sendia apurtu bear da; sendia apurtzeko seme-alabak lorrindu; seme-alabak lorrintzeko gurasoen aurka jarri; gurasoak menperatzeko atzeratutzat bota... ori danori egiteko ikastoletan asi. Azi txar orrek lur garbia aurkitzen dau, ernegaia; azi ori eraiteko irakasleak nastau bear dira; irakasleak nastatzeko zer egokiagorik? maitakeri itzak; filosofi ta teoloji apurbat ikasi duenentzat errezagoak... experientzi barriak; Nora goaz? Gizarte au ustela bada, aldatu daigun, baña urrengoak bere, Euskalerrian, sendia euki bearko dau oiñarritzat. Sendia apurtzen asi jakuz orain igarle barri batzuk. Gurasoak oraiñarte seme-alabeen askatasuna ito ei dabe...

Ni langillearen semea naiz, benetako langillea, ogeitamar urtean «Eukaldunan» «fresador» izendakoa. Gurean ez dogu baña semeak katerik ezagutu, bear zan beste dirurik eza izan ezik; kate orreik baña eziran gurasoenak, gizartearenak baño ta kate orreik sendi osoa, erri osoa lotzen eben (eta dabe) ez seme-alabeen naia bakarrik. Baliteke orrenbeste zarata egiten daben sasi-iraultzalle batzuk guk baño ornituagoa izatea askea; gu ezagutzen gaituenak ez dot uste konformistatzat botako gaituenik, baña nere seme-alabantzat neuk izan dodan eziketa nai dot; erri zalea ta kristaua.

Baña nundik nabil? Nora noa? Ikastoletara. Badakit nere esanak miñ egingo dabena, egia sarri mingorra da ta, baña, ez gara ba ain egi zaleak?

Umearen eziketa zelakoa izan gurasoen eskubide bakar-bakarra da. Irakasle ta andereñoak gurasoen ordezkariak dira eta ez ordekoak. Gurasoak eta semealabak sendia osotzen dabe ta sendiak, baturik, Erria.

Umeak erriarentzat? Bai, baña lelengo gurasoenak.

Zer jazoten da gaur ikastoletan? Ziurtasun barik ez dot erantzun nai, baña gauza asko entzun doguz, eziketari buruz: Zortzi urteko mutiko batek Jainkorik ez dagola esan dau, Bizkaiko erri baten (au zin egin geinke); beste erri baten andereñoak erlijiorik ez dala bear (au be egia da). Giro ori ez da ikastola guztietakoa? Jakiña! Baña orretarako onen-onena gurasoak arduratzea. Ikastola bakoitzak gurasoen alkarte bat sortu bear dau, alkarte orrek eziketaren oiñarriak aukeratu.

Baten batek esango dausku, zertarako orduan andereñoak? Umeen eziketan gurasoari laguntzeko, ez ezertariko konsignari jarraituz, buru biguntxu aretan ideoloji arrotzak sartzen asteko.

Gogorrak gerala? Olakorik ez dala esan bear? Or konpon! Gurasoak lotan dagozan bitartean «arra» sartu da gure artean; Lege barri barruan, ikastolak etorkizuna lortuko badabe, buruz jokatu bear dogu; gure elburu bakarra aldanik ume geien euskaldundu. Zelako eziketa obarik Euskal-Erri eder eta zoriontsu bat lortzeko? Itxi gerorako gerokoak.

ARENAZAK

ELORRIO'KO IKASTOLA

Udan sortu ziran gora-beerak zelanbait garbituta gero, Iraillean asi zan aurtengo Ikastaroa. Baiña, aitaturiko gora-beerak sortuaz batera, zerbaiten zurrumurrua zabaldu zan erri guztian, umeen gurasoak kezkaz beterik jarten ebazala. Zer zan zurrumurru ori? Esan dagigun argi ta garbi: Ikastolan ez zala Erlijiorik irakasten. Geiago oraindiño: «umeai ez yakela Erlijiorik irakatsi bear», *andereiño batek eta Ikastolako aurrelari lez agertzen diran gizon bik esan ebenez. Orixe izan zan kezka guztien oiñarria, eta besterik ez. Ez da izan, beraz, osterantzeko «kanpaña eraturik», beste ori baiño.*

Gurasoen arduradunak *kezkok garbitu gurarik, batzar nagusi bat egin da il onen 20'garrenean. Ardantza jauna buru zala, kanpotik etorritako batek, Anton Azkona'k «Euba'ko Ikastola Alkarluak» deritxen sortzea ta ekintza azaldu eban, eta oraintsu Elizbarruti onetako ordezkariakaz izan dabezan artu-emonak, Elizbarrutiko beste Ikastola guztiakaz bat egiteko asmoz. Egia esan, ez ziran ondo gelditu —aren agoz beintzat— Gotzain jaunaren ordezkariak. Alan be, «Euba'koak» Elizbarrutikoakaz alkartzeko gurari bizitan ei'dagoz. Onetzaz, jakiña, ezin dogu gure eritzirik agertu, jazo dana beste aldekoai entzun baiño len. Ba-daiteke besteak —Olazabalaga'k, Perea'k eta Loroño'k, irurak abadeak— okerretara esatea, eta errua «Euba'koai» ezartea. Alde biak entzun bear, auzi guztietan jazoten danez.*

Eta Erlijiorik ez irakasteaz, zer? Onetzaz, kanpoko «andereiño batek» —oso tabaco-erretzaillea bera— auxe esan eban gutxi gora-beera: «Umeak txikiak dira-ta —iru urtetik sei urterakoak— Jaungoikoaren ezaguerara gauzen bidez eroaten doguz, au da, eguzkiaren, illargiaren, izarren, mendien, zugatzen, loren... bidez. Ez dautseegu «Kristau-Ikasbiderik —Dotriñarik— irakasten, umeak txikiegiak dira-ta...» Aita Iñaki Albizu prantziskotarrak, orraitiño, ori bakarrik ez zala naikoa esan eutsen; umeai ori baiño geiago irakatsi bear yakela; Jaungoikoa orrela ezagutzera basatiak eurak be eltzen dirala: euren barruak berak dirautse-ta ba-dala euren gaiñetiko jaun bat. Geiago irakatsi bear yakela: gu KRISTAU garan ezkero, Jesus be aitatu bear yakela, Jesus ona, Jesus Salbatzaillea, Aren gizonaganako maitasuna, errukia ta biotz ona, zeruko Aitagana garoazana, geure alde egin dauana, eta abar.

Egia esan, besterik ez aitatzea —au da, Jaungoikoaren izatea orrela bakarrik azaltzea— ez litzake, ez, ateismua *izango, baiña bai* deismo *utsa, XVII'garren gizaldikoa, Eliza Amak aspaldian ezetsia edo kondenatua (Aita Santu Pio IX'garrenak «Sylabus» izeneko idazkian, 1867'garren urtean, eta Leon XIII'garrenak 1885'garrenean). Ez da, beraz, metodo ori oraingo «azken-irrintzia», aspaldikoa baiño. Guk, kristauok, beste jakinbear batzuk be ba-doguz, umeai nai ta nai-ez irakatsi bear yakezanak. Zeintzuk? Erraza da ori jakitea: oraintsu argitaratu da «Kristau-Ikasbide» barria, antxe dator zer irakatsi.*

Berba baten: zein da Elorrio'ko gurasoen guraria ta asmoa? Euren umeak, Kristau-Ikasbidearen bidez, KRISTAU aztea ta egitea. Orretarako, «andereñoak» gurasoen asmoetara makurtu bear dira; bestela, barriz, gurasoak beste bide batzuk artzeko beartuta dagoz, kristau lez eta Elizaren menpean jokatu gura ba'dabe beintzat.

Gotzain jaunari be bai erregu bat: Bizkai'ko Ikastola guztiak alkartuta ez dagozanaren errua, «Euba'koak» Gotzain jaunaren ordezkariai ezarten dautseen ezkero, gauzak diran lez argi ta garbi azaldu dagizala; eta gora-beera guztiak artez eta egoki lotu eta konpondurik, «Ikastola» guztion alkartasuna lortzeko alegin biziak egin dagizala, alkartasun ori guztiz onurakorra izango litzakela uste dogu-ta.

Batzarra, onez eta baketan amaitu zan. Akats bat, orraitiño, agertu bearrean gagoz, euskaldun garanon aldetik: «Andereño» baten esanaldi edo frase batzuk izan ezik —eta eurok erderara biurtuak—, batzar guztia erderaz egin zala. Ori Bilbo'n edo Barakaldo'n egitea, tira; baiña, «Ikastola» ren izenean ori Elorrio'n egitea, ezelan be ez. Eta nik auxe darabilt gogoan: An egozan gurasoetarik, zenbatek irakurriko ete-dabe euskeraz, eurak jasoten dabena gero euren seme-alabai emoteko? Zenbatek ete-dakie euskeraz idazten? *Geienak, euskeraz «analfabetuak» dirala entzun dot (euskeraz idazten ez dakiana euskal-analfabetua da-ta). Euskeraz idazten ez dakiana, barriz, «erdi-euskaldun» da. Beraz, gurasook: nai dozue euskeraz idazten ikasi,* euskaldun osoak *izateko? Ba-dago Elorrio'n abade bat zuei idazten irakasteko gertu. Beraz, sarea botata gelditzen da.*

MEMAIA

KRISTAU-IKASBIDEA

Irarkola sortu zanetik ainbat liburu argitaratu dira ta izkuntza guztietan; alan be bat bez kristau-ikasbidea baño ederragorik, mamintsuagorik. Liburu txikia egiz, baiña ederra, bikaña, mamintsua. Erlejiño osoa dago liburutxo onetan; urrezkoa da ta urrezkoak bere orrialde guztiak. Gizarterako maitasuna dariola. Gaurko katolikoak liburutxo onek agintzen dauana beteko ba'leukee, elitzake ikusiko ainbeste zuzengetasun, ainbeste gorroto, ainbeste lapurreta, ainbeste maltzurkeri gure errietan. Kristautasun geiago legoke. Kristau-ikasbidea Ebanjelioaren laburpena da. Antxe aurkitzen da Jesukristoren ikasbide guztia. Gure erria zoriontsu ikusi gura ba'dogu, bakearen jabe ikusi gura ba'dogu, erlejiñoaren kerizpean izan bear, ostean ametsa izango da, eziña. Garrantzi aundia dauko txikitxikitatik umeari kristau-ikasbidea irakasteak, ostantzean kristau makala ta ezjakiña izango da. Kristau-ikasbidea baiña bakotxari bere izkuntzeraz irakatsi bear jako: italiarrari italieraz, españarrari españeraz, prantzitarrai prantzeraz eta euskaldunari euskeraz. Zer ba? Euskaldunok ez ete daukagu eskubide bardiña onetarako? Onen aurka egitea, au da, euskaldun umeari euskera ez dan beste izkuntzan kristau-ikasbidea irakastea Jaungoikoagandik artu dogun eskubidea austea da, ta au pekatu aundia.

Euki begie gogoan eskubide au gurasoak, elizgizonak eta agintariak eta euskaldun umeai euskeraz irakatsi kristau-ikasbidea. Erdera utsean irakatsi izan jake euskaldun umeai kristau-ikasbidea urteetan naizta umeak euskera besterik jakin ez. Ez eskoletan bakarrik, elizetan be bai. Pralle ta monjen ikastetxeetan be bai. Iñon ez da ikusi olakorik. Gure errian bakarrik. Zorionean agertu ta azaldu zan Batikanoko Bigarren Kontzilioa. Gure euskerak zabalik daukoz gaur eskoletako ta Ikastetxeetako ateak naizta ez bear dan aña.

Artu bei gure euskerak bere tokia gure eskoletan-da. Sartu beite gure umetxoen biotz eta adimenetan ikastaroetan. Orrela laster izango da barriro be jabe euskal txokoetan.

GARUN GARBIKETAK

Ez dot nai amaitu lantxo au, gaur gure artean ikusten dan jazoera lotsagarri batekin aitatu barik. Euskal ikastolak ugari zabaldu dira gure errian azkeneko aldi oneitan. Gure umeak euren izkuntza erabilli leikie ikastaroetan. Ikastolok baiña danak ezpa'da be askok akatz aundi bat daukee: Jainko-utsunea; ez da irakasten erlejiñoa, kristau-ikasbidea. Zer dala-ta? Jainko-ukatzalle batzuk ardura aundi diardue gure ikastoletatik erlejiñoa uxatzen. Ez ei da egoki-konbeni umeai erlejiñoa irakastea; umeak eurak ikusiko dabe geroago zein erlejiño artu, zein bide artu. Euren buruak euskaltzale zintzotzat eta erri-zale zintzotzat egiten dabezan «jaunetunok» ezagunak jakuz. Bildots-jantzi agertzen diranok otso gosetiak dira, etsai-iak, eta zur ibilli beitez gurasoak. Jakin begie aurretik noren eskuetan izten dabezan euren umeak. H banderatzat artu esker-aldera eroan gura dabe gure gaztedia, jainko-ukatzalle egin. Zer ba? Gorputz-soin-bakarrik ete da umea? Ez, badakie orrenbeste; soiña ta gogoa. Gogotik Jaungoikoa kendu bear eidabe, bestu «zerbait» eri toki egiteko. Erotismoa'n bai, gero, orretan «konprometidu» onduren, euren otsein betiko. Euskalerria fedun izan da beti; ainbeste urtetan zaindu izan dau erlejiñoa. Gaurko «igarleok» ostera erriak ain maite izan dauan erlejiñoa sustraitik kendu gura leuskio. Erriaren salbatzalle lez agertzen dira. Onein arpegia agirian ipinteko ordua da. Euren asmo baltzak erriari agertzeko eguna eldu da. Ixilik eta geldi egoteaz mesede aundia egingo dautsoe euskerari, mesede aundia Euskalerriari, mesede aundia euskaldunai.

Jarraitu begie nai daben bidea, jasan nai daben bandera; nai daben Jaungoikotxoa gurtu begie, baiña euskera bidetzat artuta, gure umetxoak Jainkoagandik aldendu... ori ez... ori ez...

Kementsu ta erriaren aurrean diotsegu: STOP! UTIKAN!

GOIRIA

MUTILLAK, BIZIA

Gaztañaga adizkide, zuk zirikatu nozu zure idaz-lan bidez. Emen doatzuz nere itz laburr zureekin alkartzera.

Baso ertzean jaio ta azi nintzan. Antxe, ezagutu nituan lenengo euskaldunak. Beti, labur aurkitzen nituan neure inguruan lagunak. Batez be, idazte-kontuan. Gu orretarako giñala jaio esan zeitekean.

Gaur egunean ostera, guztia da jakituria ta ausardikeria. Esaera dan lez, iñork ez dau miñean ulerik. Ta zenbat eta gazteago izan ta zenbat eta ausarditsuago, zer esan geiago dau ta norbere ustez errasoi aundiagoak.

Ludian gizonak dagiezan jakituri aurrerapideak, oso, pozgarriak dira. Aurrerapide onen gizartearen onerako erabilten ba-dira, zorionekoak gizon jakitun orrek. Baiña gizadia otseindu bearrean, erriak zapaltzeko, nai ilteko ba-darabillez, gizonak ez dau jakingo zelan gaizte okerkeri ori.

Gure izkuntza saillean, gaur, ainbatek euren eretxiz gauza aundiak egiten ditue. Ta egite dantxue, garaiz, plazara atera ta tanborragaz aditzen emon oi da. Au bear ba-da, bearrezkoa izango da aldi onetan, bestelan iñork ez leuke jaramonik egingo. Orren aurka ez nintzake ezer esaten ausartuko, aldi bakoitzak bere legeak ditu-ta.

Baiña gaurko gizon jakintsuak dirala-ta, zerbait gogoratu bearra ba-dot. Lengo gizona ta batez bere, jakintsuak, euren lanen bidez eldu ziran maillara elduta egon ez ba-ziran, gaurko gizadia arrituta daken egiterik, egin al izango ete eben? Beti, bearrezkoak izan dira gizonaren almena, aldia ta lan egiteko gogoa. Ta onen bidez doa gizona lurrean, itxasoan aidean eta illargian dagozen jakituri ta gaiñerako onurak artzen.

Ezer egin dabenak, era onetan jokatu dabela esan lei. Ta, iñoz, ez ditu itzi bertan beste gaiñera, aurretiko gizonen bear ugari ta jakituri aundiak.

Gure euskal arlora, barriro, biurturik, lena ta oraina lasaipenez gogoratu daiguzan. Aldi guztietan gazteak bere odol-garra izan eban, ta zaartzen joianari gar ori ilten oakion, baina zentzuna mardultzen. Aurretikoak poztu egiten ziran ondorengoen etorpide ta jakituriaga Ta gazteak ostera, nekez, onartzen eben, bear zan eran, aurretikoen bear itzalgarria zan.

Orain aldiak bizkorrago doaz aurrera. Eta ez dakit ze aizek astinduta edo aztigarren bat ikututa ba-da, emen, uriolak euren lekutik urten dabela dirudie. Era barri ta indartsuagoa artu bear dira bizitzan, gure bizia, bestelan, amaitu egingo litzake. Geure alegin guztiak zor dautsaguz gure izkuntzari, baiña ez gaitezen zorabiatu.

Lengo gure idazle aundiak, batzuk illak direla, ta beste batzuk urteetan aurrera doazela-ti gure euskal-gizon ospetsuenak baztartzea, nori gogoratu leikio...

Gizon jakitun ta aundi orrei irri eginda, nora eldu ete leiteke? Nik beste batzuekin batean gizon orreengandik ikasi dot dakidantxoa.

Orain jazoten jatana au da, idazle barri askoren idaz-lanak ezin ditut aitu. Ez dakit euskera ala erdera diran. Berba asko erdera legez esagun ditut, beste batzuk euskerazkoak direla iritzen jataz, ta bien bitartean sortzen dan nasteagaz, a zer dan, nik ez dakit.

Gaur eguneko euskal jakituri artean beste zerbait be asmetan dot. Izkuntzak euren legezituela-ta nengoan. Ori dala-ta, idazle batzuen irakurgaiak atsegiñagoak izan oi dira euren argitasun berezia-gaitik.

Baiña orain, lege onek beste zerbaitegaz trukau egin dira. Ta nik, erderaz pentsetan a bear izaten dot, euskera ustean idatzita dagoana, ulertu al izateko. Era onetan euskera iltera ete goaz? Gure izkuntzaren azkenengo etsaia ori ete da?

Lenengo, euskera zerbait ikastea, obe, ez ete litzake izango? Ta gero, argitsuago geuerriari argi egingo geunskio.

Gaztañaga adizkide, zure lanak beste batzuenak legez, arduraz, irakurten ditut. Ordu Gipuzkoako mendi artean izar bat agiri da euskal-gauari argi egiten. Zuk emondako argi-bidearen jarrai lagun asko izango dira. Ziur nago. Al dauanak argi egin bear dau. Ta ekin, adizkide on-arren, gure gizon langilleak urratu eben bidea, geiago ta geiago, urratzen.

EGIEDER

Gizartekoak

Irakaskintzarako baimendun bategaz alkar- izketa

Deustuko Jesuiten Ikastetxe nagusian, eta aurtengo urrillean, amaitu ditu bere ikasteak OLAZAR ETA URIBE Martiñek. Irakasteko baimendun dogu ba gure aldiskide au. Bere euskaltzaletasuna sarri agertu dauskun lez, eta bide onetatik ainbat lan alkarregaz egin doguzen ezkero, uste izan dot beroneri AGUR'erako itaun batzuk egitea egoki litzakela.

—Lenengo ta bein, zorionak, Martin, zeure antxiñako amesa bete dozulako.

—Eskerrik asko.

—AGUR'erako erantzun batzuk emongo daustazuz?

—Bai, eta pozik emon be.

—Non egin dozuz zeure ikaste orreik?

—Lenengo lau urteak, ikastetxera joan barik, egin nebazan. Asteraldietan joaten nintzan. Onelan urte bi Oviedo'n eta beste bi Madrid'en egin nebazan.

—Eta asterketak, errezak?

—Bai, ez ziran gatxak; baiña neu ez nintzan ondo gertatuta joaten. Irakasleak ezagutu be ez nebazan egiten eta, gaiñera, lan aundia neukan, bai parrokian, bai abadegai-etxean iru urtean, eta gero Mungi'ko ikastetxean. Lau urte oneitako ikasteak ez jatazan izan atsegin.

—Euskereari buruz, zelako giroa aurkitu dozu Ikastetxe nagusi orreitan?

—Oso ona, batez be Oviedo'n Alarcos izkuntzalari ospetsua oso euskera zalea agertu jatan eta berba asko be ba ekian. Benetako izkuntzalariak berez, euskera zaleak izan bear dau.

—Azkenengo urtea Deustun egin dozu. Deustuko ikastetxe nagusia Euskalerrikoa da. Zelan aurkitu dozu bide oneri begira?

—«Filosofía y Letras» deritxon alderdian alde batetik kondaira zaleak eta bestetik izkuntza zaleak egon gara eta bietan Euskalerria kontuan artzen da. Gogoratu egizu antropologi-astea. Kondaira-zaleak Bizkaiaren kondaira ikasten dabe. Izkuntza-zaleak astean iru ordu eta urte bian egiten genduzan euskerea ikasten. Bik euskerearen ordez katalan ikasten eben, angoak ziran eta. Euskerearen ikasleak eun inguru ziran eta geienak euskerarik ez ekienak.

—Nortzuk izan dozuez irakasle?

—Aita Patxi Altuna izkuntzarako astean bein eta Alfonso Irigoien Jauna astean bein izkuntzarako eta beste bein izkuntzaren kondairarako. Biak, neure ustez, irakasle onak.

—Deustuko Ikastetxe nagusiari, eta euskereari buruz, zer geiago eskatuko zeunskio?

—Gaur ezin leike, baiña geroago euskerearentzat alderdi, fakultade, berezi bat.

—Zergaitik diñozu gaur ori eziña dala?

—Ez ikaslerik ez irakaslerik dagolako. Gaur ikastoletan dabiltzan umeak erdi-maillako ikasteak amaituten dabezenean izango doguz ikasleak. Baiña irakasleak?

—Zeri buruz egin dozu ikasteen azkeneko maixu-lan txikia, tesisana?

—Mungi-alde, Bermio eta Ondarruko euskal abostegiari buruz.

—Zergaitik aukeratu dozuz erri orreik?

—Euskal abostegiak aurrerapide bat dauko eta Mungialdean dagoz mailla bi, aurrerago dago Bermio eta aurrerago Ondarru. Baiña au azaltzea ozain ez da egoki. Onetzaz beste lan bat egingo dot AGUR'erako.

—Zein izkuntza eta zelakoa erabilli dozu lan orretan?

—Bizkaiko euskera apaindua. Gero gasteleratu egin neban. Guztiz 110 orrialde. Beste alderdi bat be badauko lan onek: Bermioko, izkeraz idatzitako liburu baten zatiaren azalmena, baiña abostegiari begira. ORTUZAR'en *Torronterua* da liburu ori.

—Nork zuzendu eutsun lana?

—Alfonso Irigoien jaunak asko lagundu eustan, baiña legezko zuzendari Mario GRANDE jauna izan zan. Onek euskera asko ez daki, baiña beste alderdi batzuetatik asko irakatsi daust. Euskaltzalea eta laguntzalle ona da. Bientzat neure esker ona.

—Lan au egikeran zein izan dozu gaiztasunik aundiena?

—Iztegia. Ez nekian erdel berbak artu ala euskal berba barriak egin. Azkenean bigarren bide au artu neban eta gero iztegitxu bat ipiñi azkenean.

—Zelan artu eutsuen irakasleak euskeraz egindako lan ori?

—Ez neban izan eragozpen aundirik. Zati bitan eroateko esan eusten, bata erderaz eta bestea euskeraz. Azterlariak erderea azaltzeko esan eustan eurak euskeraz ez ekiela ta. Oso maitekiro artu ninduen.

—Zelako eretxia emon eutsuen?

—Zaragozako irakasle batek egin eutsan azterketa. Izkerazalea, dialektologoa zan bera eta asko goratu eban lana. Beretzat basamortu baten lorategi bat lez izan zala esan eustan. Neurea bakarrik zan izkera-lana. Akatz batzuk aurkitu ebazan. Lur-irudiak, mapak, asko goratu ebazan. Azkenez, izkuntza-atlas egiten danean nire lana laguntza onuragarria izango zala esan eustan. Berak Naparroan egin eban edo egiten dabil lan au baiña euskal alderdian eragozpen aundiak aurkitu ditu.

—Euskereari begira ezer esan eutsun?

—Bai. Onexek berbak esan eustazan: «Euskera batua egiteko bideetan zabiltzeela entzun dot eta zeure lanean be ba diñozu. Ez egizue olakorik egin. Greziako «koine» antzeko bat izango leiteke eta erriaren izkereak daukazan aberastasunak galduko zeunkeez». Eta nik erantzun neutson: «Baiña arazo sakon bat daukagu: gure aldizkariak eta liburuak gitxi saltzen dira, ez dira zabaltzen bear dan lez». Eta berak erantzun eustan: «Bear ba da euskera batu bat idazkietarako elitzake txarra izango, baiña erriaren izkerak aintzat artu eta zaindu egizuez, aberastasun bat dira ta».

—Eta orain, agiria, tituloa, daukazun ezkero zer egiteko asmoa dozu?

—Geure erriaren alde jokatu. Lenengo ta bein dakidan apurra irakatsi. Gero, atlas ori egiten ba da, neure laguntza pozik emongo neuke. Baiña au lan ikaragarria, bearrezkoa eta langille asko bear dauana da.

—AGUR'eri begira, uste dozu ezer egin zeinkenik?

—Nik uste dot baietz, eta, neure aldetik orretarako benetako gogoa daukat, batez be Gotzon GARITAONAINDIA'RI agurra egin geuntsanik gora. Baiña orretarako aldun banaz arduradunak esan bear dabe.

—Besterik ezer AGUR'en irakurleentzat?

—Gauzatxu bat bai. Atxezalea ez naz eta AGUR benetan maite dot. Uste dot aurrera bide luzea daukala.

—Irakurleen izenean, eskerrik asko, Martin.

ZABALO Balendin

LOIOLAKO IRRATIA, SARIDUN

1970.ngo. ONDAS sariak, begi-niniko irratiaren entzutea gogora eman digu. Musika-irratsaiorik onenaren saria, Loiolako erri irratiari eman berri diote.

Irrati onen aipua, erriaren muiñean sartua dugula esan bearrik ez dugu, noski. Eta orain, erriaren mugetatik at, oorerik aundieneko irratien saillean ere, gogoratuko dute. Euskaldun garenontzat, gure ortze illunaren erpiñean, lan aundi baten merituak aitor ditute.

Dirala lautsu urte, beste bideak moztuki, F. M'en asia zan Loiolako erri irratia. Lan-zale porrokatu batzuen menturazko bidea. Il edo biziko elburua.

Naiaren itsumen artan, bateko, teknika-arau berriak. Besteko, zenbat radio izango ziran, ordukotz, F. M. ar zezaketeanak? Baiña, danok gare jakitun, Loiolako erri irratiak, entzuleen laguntasun oso-osoa izan zuala. Lanerako gertu zegon profesional-talde baten bortiztasunean sinismen, bostpasei milla familik beren agiriak eman zituzten, Gipuzkoak probintzi-irrati bat zezan.

Geroago, alderdiok denak bide, denpora askorik baiño leen, arrapastaka urratu zituzten bide berriak, Loiolako lagunek. Or duzute orain eredu gisara «Ondas» saria. (Eredu bat bakarrik, goizeko 8'tatik gaberdiko orduak artean egiten diran saioetatik).

Loiolako erri irratiak eskeintzen dituen lanetatik, *euneko larogei*, Loiolan bertan egiñak dira· Xuxenago esan: erriz-erri egiñak. Azken-bolaran, ori bait da Loiolako erri irratiaren elburu: erri-xumetik, erri-gaiak jaso eta zabaldu. Bide gaitzak dira. Erri aundiak bezala, erri ttipienak ere, oso sarritan autatu eta aireatzen bait ditu. Erri-bakoitzeko berri-emaille eta Loiolako bixitarei esker, dena lortzen da ordea. «Erri irrati» izen-buruak eskatzen. Eta, egiaski, errian jantzi eta mamitzen da irrati gazte onen eginkizuna.


Erri-jakintzaren arazoak zabalkiro ikutu eta astindu oi ditu, eta leen esana berriz ere: erri ttipi eta aundiak berdin ikuitu ere. Errien aukeratzean mugaketarik gabe, alegia.

«Ondas» saria, irratsaio bati emana duzute. («Orff sistema, musika-pedagojian»). Baiña erriaren saria (askozaz jatorragoa bait da) beste saio askotan banatua dugu. Irratsaioen saria, entzuleen onartzea dalakotz bait gare.

1970'ngo. saria, eredu bat dugu, ta ez besterik. Eta entzule bezala, saridunaren poza, etxeko egiten dugu gaur, Loiolako erri irratiaren miñaldietan min izan dugun bezala.

GORAINTZI

GALDONA MARGOLARIA



Joxe Ramon Galdona Bilbao, bermeotarren arteko artistea dogu. Pintore ona, euskaldun obea, zintzoa ta jatorra, bere izakera emonkorrak egiten dautso bermeotarren ta euskaldunen artean abegi onagaz artua izatea.

Kuadro ederretan bere sentimentuak agertzen dauz, batez bere arrantzaleen arazoak, itxasoko lan gogorretan ta portuko goraberetan. Aukera ona izan ta gaur izketalditxo bat egin dogu:

—Jose Ramon, nun jaioa zara?

—Mundaka'n jaio nintzan ogetazortzi urte dirala. Orain Bermio'n bizi naiz. Bertan egiten dodaz neure lanik geienak.

—Ze eskola ikasi zendun mutikotan?

—Batxillerra egin neban 5'garren urterarte.

—Pintatzen noiz asi ziñan?

—Amairu urtegaz asi nintzan pintatzen, neure kontura, ez daust iñok erakutsi.

—Nundik zear ibilli zara gaiak billa?

—Ba, nik pintatzen dodaz euskal giroko gauzak, au da, antziñako euskal sukaldeak eta arrantzaleen gora-berak itxasoan eta portuan.

—Zenbat kuadro daukazuz?

—Eun kuadro inguru egin dodaz.

—Zein eskola da gaur garrantzitsuena euskal gaztediarentzat?

—Nire ustez, erriaren gomutagarri diranak, bertan agertzen da erriaren izakerea ta.

—Nor da zuretzat gaur euskal pintore barrietatik bide barriak zabaltzen dabillana?

—Ba-dagoz batzuk, euren artean Berrueta, Aranoa ta Garcia Ergin.

—Zarretatik zein deritzazu jarraitzeko maixu onena?

—Nire ustez Arteta, au da jarraitzekorik onena.

—Erretratistetzaz zer diñoskuzu?

—Olabe eibartarrak burua lar agertu barik, lan asko ta garrantzitsua egin eban. Gaur erretratista lez, Parraga da geien gustatzen jatena.

—Nun agertu dozuz zeure kuadroak?

—Ainbat lekutan agertu be, euren artean Bilbo'ko Mikeldi'n.

—Saririk ba dozu?

—Gazte nintzala, amabost urteko, artu neban lenengo saria. Bermio'n atera neban lenengoa, ta Bizkai'ko artistean artean bigarren gelditu nintzan. Aurten sari bi izan dodaz, bat Elantxobe'n lenengo sariagaz ta bestea bermeotarren arteko artista onenari eskeñia.

Onek dira Joxe Ramon'en eretxi batzuk, AGUR'en izenean zorionak emoten dautsudaz zure sariakaitik, ta jarrai daizula beti euskaldun zintzo.

GOIRIGOLZARRI'tar XABIER

Meñakabarrena'tik

«AGUR» izparringia'ri: Zelan zabiltz? ni ondo, uste dot zu bere ondo ibilliko zarala. Nire lagunak artu dabe AGUR, nik ez dot artu baiña, or datozen Meñakabarrena'ko zatiak erdia baño geiago guzurra da. Ni orra eskolara nabil eta nik ikusten dot zelan euskeraz egiten dan. Eta eskolarik eukiko ez ba'gendun, euskerariz ez genduke jakingo. Monjak ez balegoz ez litzake egongo ez ezkolarik eta eleizarik be.

Mesedez zure izparringian argitu esaten doguna.

Alejandro Zabala	**M.ª Isabel Elorduy**	**Yon Villa Orue Ormaechea**
Pedro M.ª Bilbao	**Miguel Angel Zorrozua**	**M.ª Jesús Elorza**
Gema de Jesús Bilbao	**Félix M.ª Bilbao**	**Edurne Elorduy**
Juan Cruz Iturri	**Isaac Izurieta**	**José Javier Beldarrain**
Jose Ruben	**M.ª Victoria Uriarte**	

IDAZTI BARRIAK

Egillea:
ZARATE Mikel.

Izena:
Bizkaiko euskal-idazleak (Bizkaierazko literaturaren kondaira antzera).

Apaintzalleak:
MENTXAKA Rapel.
DEL AGUA Lauto.

Argitaratzallea:
Derio'ko Seminario-ikastetxea.

Irarlea:
EGUILUZ Bilbao.

BIZKAIKO ELERTIAREN KONDAIRA

Elertizaleak eta elerti kondairaren irakasleak eurentzat lanik gatxena elertiaren kondairea idaztea litzakela esaten dabe.

Zergaitik? Liburu oneik, geienez, beste liburu batzuetatik artutako eretxiz osotuten diralako. Eta au ez da bide zuzena. Arrisku aundiko bidea da. Onelan, idazle bat, ona izan arren, aurretikoak ontzat artu ez ba dabe, orain be ez da onartua izango.

Orraitiño, elertizaleak, an or emen, kondaira liburuak egiten dabez.

Zetarako? Irakasteak irabazte gitxi emoten dautsenez, jakiña... bizi egin bear. Lan oneri eurak, erderaz, «industria textil» esaten dautse «textoak» egitea da ta.

ZARATE Mikel'ek be gure elertiaren kondaira liburu bat egin dausku. Ez bere aurretikoen liburuetatik artutako eretxiz. Egia esan, nondik artu asko be ez egoan. Berak erabillia lez agertzen dauskun liburutegia, ondo aukeratua baiña laburra da (303'garren orrialdean). Aurretiko lana ain laburra izanik, ZARATE'k asko irakurri bear izan dau.

Ez ta liburu au diruaren etorpide bat izango dalakoan. Liburu au merkea izan ez arren, ziur nago, egillearentzat irabazbide ez da izango. Ain gitxi irakurten dogu euskaldunok! Beste alde batetik, oindiño ez dot uste iñon irakastetxeko liburu lez au artua izan danik. Eta auxe zan egillearen gogoa: «Abade ta fraille-ikastetxeetara'ko, Unibersidadetarako eta ikastetxe ta ikastolatarako egin dot» (9'garren orrialdean).

KONDAIRA-LIBURU ONEN MUGAK

Izenak naikoa argi diñozku kondaira onen mugak zeintzuk diran: Bizkaiko idazleak, euskal-idazleak, bizkaieraz idatzi dabenak. Ba dagoz, orraitiño, «Bizkaikoak ez diran idazle batzuk bere... bizkaieraz idatzi dabelako» (9'garren orrialdean).

Zergaitik eta zertarako muga oneik? «Gure literatura idatzia oraintsukoa eta urri samarra da», diño egilleak. Zergaitik ez beste euskalki batzuetako idazleak edo bizkaieraz idatzi ez dabenak artu? Muga oneik ipiñiaz ondo egin dauela uste dot idazleak. Onelan, idazle gitxiago artuez bakotxa obeto aztertu leike eta irakurgai geiago ipiñi be bai. Beste euskalki batzuetan antzeko lan sakonak egiten badira, gero diranak batu al izango doguz.

IRARRERA

Liburua polito irarrita dago. Apaingarriak oso politak dira. Zati bitartean orri sendo ta orlegiak eta gaurko margozki egokiak. Irarrera onek, jakiña, liburua karutu egin bear. Baiña euskaldunak, geure jakintzari begira, tamal aundi barik, dirua emoten ikasi bear dogula uste dot nik. Aundikeri zaleak ez dogu izan bear, baiña geure lanak bear dan edertasunez erakutsi bai.

LIBURUAREN EGITUREA

Itzaurreak, lau zatik eta itzatzeak osotuten dabe liburua. *Itzaurrea* naikoa luzea da, larregi barik. Elerti-kondairaren iturri biak azaltzen ditu: «aoz-aozkoa eta liburuetakoa».

Lenengo zatian «asierako idazleak» aztertzen ditu. Oso egokiro dakarz Detxepare'n berbak, bizkaieraz izan ez arren:

«Heuskara
oraidano egon bahiz
imprimau geberik...»

Gero datorz kristiñau-ikasbideak, Betolazarena aurretik dala, gero asierako olerkiak eta idazle zarrak.

Bigarren zatian «Larramenditarren giroko idazleak» aztertzen ditu.

Irugarren zatian «Arana'tarren giroko idazleak».

Laugarren zatian «gure aldiko» idazleak.

Gero *itzatzea* dator.

Lenengo ta bein bere liburuan agertzen ez diranen izendegi labur bi dakarz: Il ziranak eta bizi diranak. «Liburuak, eta gogoak bere, neurri bat eukiten dau ta... parkatu». Bere lanaren mugak gogoraturik «Euskalerriko *zerbaitaren* zatitxo bat baiño ez dala» eta gaurko lanak gogoraturik, zerbait ori itzaltasunez artu bear dogula diñozku. Eta, azkenez, Oxiñondoko Txoriaren ultraista-antzeko olerki alai bat.

IDAZKEREA

ZARATE Mikel'en Bizkai'ko izkerea garbi, eder, bizi, eta zolia da eta euskera baturako oinkada batzuk emoten ditu bizkaieratik urten barik. Onetan maixu da. Berak aztertzen ditun idazle batzuk garbizaleak, dirala diño, baiña bera be garbizalea da asko baiño garbizlego beintzat. Nork artu emen neurri egoki bat? Joskerea oso ederra eta erritarra benetan. Onezegaitik liburu au atsegiñez irakurten da. Idazle oso ona dogu gure ZARATE eta euskereak beronegandik itxaropen aundia izan leike. Gizon langillea da eta sekulako gaztearoan dago.

AZTERPENAK

Idaz-lanen eta idazleen azterpena, geienetan beintzat, egiten dau, baiña onetan bear dan beste zorrotza danik ez dot uste. Esaterako, gure Gotzon zanari buruz diñona: «gizon fiña ta atseginа, idazle jatorra ta bizkorra» da. Nire ustez azterpen oso edonorentzakoa da. Zergaitik ez gero dakarren irakurgaia apur bat aztertu? Liburuak urten eban egun beratan joan zan gure Gotzon!

BILBAO Antoniori buruz ezelako eretx
ez dakar. Bardin esan bear ETXEBARR
Juan Anjel'eri buruz be. ETXENAGUS
Karmelo'k «biotz bigun, samur bat» dau
baiño ez diño. BILBAO Felix'en azter
nean ba diño idazlanik ederrena zein
eta gero Aita VILLASANTE'ren bo
egoki batzuk... Azkenetik aurrerantzak
konturaturik, oneik dira, baleiteke, azter
aldetik utsenak. Geienetan, bere berbaz
iñorenez, eretxia emoten dau.

IRAKURGAIAK

Aztertzen dauan idazle bakotxaren
kurgai bat dakar liburuak. Eta ondo
iztegi berezia. Irakurgai oneik asko lu
dabe liburua, baiña, neure ustez, oso ga
egokia da. Elertia ikasteko irakurgaiak
rrean euki eta aztertzea, batez be aztert
garrantzirik aundienekoa da. Liburugi
irakurleari idazle bakotxaren idazkera
tzeko bideak zabaldu bear dautsoz.
irakaslearentzat itzi bear ete dogu ori?

AZKENA

Liburu ederra ba, ZARATE Mik
liburua. Euskaltzale guztiak euren libu
gietan euki bear leukee, bai Bizkaikoak
bai kanpokoak. Irakastetxe guztietarako
egokia da, Bizkaiereari begira, bein
Liburu au gure elertiaren kondairan
rako artu bearrekoa izango da.

OLAZAR Martiñ

EDALARIAK SUECIA

**Garagardau, ardau ta paitar
edanda automobillak gidatzen dabez
«rattfylleri» deituten dautsee. Ur
eunka espetxean sartzen dira. Ta e
edo kalte aundirik euren berebil
egitearren, ba orduan, jakiña, zigor
diagoa artuko leukee. Txolkada bi pa
edo botella erdi ardau ondoren bere
erabilten dabenak, Bogesund'eko
petxera eroaten dabez.**

**An, lan gogorrak iru edo lau egun
egin bear izaten dabez. Baiña noiz et
urte-aroan Bogensund'era joatea, e
aukeratu leikee. Zigor epaiaz gidat
baimena be urte osoan kenduten ya
Baiña orregaitik izen eta entzute on
dabe galtzen «rattfylleriak». Euren
kidé ta lagunak ez dabe gogoratuten
kin-errudunak dirala; bakarrik erri
ñen eskuetan jausiak eta paitarr
arnasa ete-daben azterketako zor
batzuk baiño. Ta naiko da autora ig
ibilkoi aurrean jesarri, berebilla ib
asi bage, epaitua izateko. Egite osp
izan da, kale batetik bestera eroaten
llan ostatulari baten alditxar zoriga
Errizaiñak zeregin onetan somatu
edanda, ta epaikari zorrotz batek ko
natu eban.**

**Bruno Larsson, Bogesund-kartze
zuzendariak, lege au atzerritarrentza
ba-dala esan eustan: «Emen izan
ejipziotar sukaldari bat, ingelandar
kiñen agintaria, jermandar olagille
Polonia'ko salostari bat. Ta orain
zan bertako suekotarrak, osagil
antzeskiñak, abeslariak, diruetxeko
zendariak be ba-dira. Baita beste ald
ten etorri ziran ona luterano abadea
gizon batzuk eta errizain aundiki ba
litikorik, iñoiz bez. Alandabe, ed
itzelak dira gure aberri onetan, eu
laurogei diputadu edo aurkeztari
leak dira«.**

**Suecia'n edalari ta moskorti asko
dira, errege Gustavo III'ak dau e
Onek bere menpekoei adierazoten e
moskortzea aberri eginbear bat
(Baiba, paitar saltzearen irabaziak
ge-etxekoentzat ziran). Gustavo i
rren orrek paitar saltokiak elex
atean ipini ebazan, eleiztarrak ed
adoratutzeko.**

**Aldi aretan, langille askok al
zati bat lez paitarra artuten eben et
urtean baiño geiago salerosteetan d
lakotxe zan.**

**Orain, gaiztakeri ariña egiten d
nei, epaikariak kartzelea ala osakai
keiñiten dautse. Osakai onen izena
tabus» da. Artu txolkada bat whisk
gero sendakil «antabus»a, ta illabet
rruan paitar, ardau ta ugorkien
zaletasunak iges egiten dau.**

**Ba dira Euskalerrian be edazlea
ez ordikeri gitxi, zoritxarrez. Nok
ardau-paitar-ugorkilariek zenbat
oben eta gaiztakeri egiten daben
Bide-kamiñoko ezbearrak askotan
dik datoz? Ez ete dauke etorkuna
kian eta ordikerietan?**

**Suecia'n lez gure artean, edazale
dunei legeauste-nekea ipintea, sen
«Antabus» ala espetxe-kartzela
ratzea, elitzake txarto izango.**

LETON

«Garitaonandia'tar Gotzon»

IDAZKETA SARIA

«GARITAONANDIA'TAR GOTZON» elebarri edo nobela sariketara dei dagitsugu. Elebarriak euskeraz bear dau izan eta iñoiz euskeraz argitaldu bakoa. Idazleak asmatuak ala itzulpenak, biak ontzat artuak izango dira.

Edozein euskalkitan idatzia izan bei. Arrera obea izango dau baiña, Bizkaia'n neke aundi barik ulertzeko bidean egiña.

Bidasoz andikoenak izan ezik, ez dira «h» dun lanak onartuko, ez eta mordollokeriz zikindutakorik ere.

Neurrian, 100 (eun) orriluze edo folio gitxienez, bitarte bira idatzita makiñaz.

1971'ngo Orrillaren 31'rako, AGUR'en urteurrena alan be, Bilbo'ra bialduak izan bearko dabe: AGUR, apartado n.º 2, zuzenbidera. Idatz-lana ezizenez izenpetua izango da, ta oi dan lez, idazlearen argibideak azal itxi baten sartuta lanakin batera etorriko dira.

Orrillean bertan, nortzuk izango diran epaimaikoak jakinarazoko ditugu. Oneik aztertu eta erabakiak artu ko ditue Irallaren 30'erako. Ta euren erabaki a osoan on-artua bearko dau izan.

Sari nagusia lortzen dabenantzako, lenengo saria, 25.000 pezetakoa izango da, ta 5.000'koa bigarrenarentzat.

1971'ngo Urrillean, Gotzon zanaren urteurrenean, sari onein banatzea izango da.

Saritutako idatzlanak, AGUR'en esku geratuko dira, sei illabeteko epean baiña, ez ba'ditu argitara emoten idazlearen esku izatera biurtuko dira.

AGUR

EUSKAL ADITZA

BIZKAIERA

Fgillea: PEDRO PUJANA

Salgai: EGILLEARENEAN ETA LIBURUTEGIETAN

Idaztiak. - Datozan jaietarako opari ederrenak

GURE IZTEGI NAGUSIA: DICCIONARIO VASCO - ESPAÑOL - FRANCES, Azkue'tar R. M.'rena.

Ber-berak egin eban axe barriz argitalduta (ogei urte dirala, Antonio Tovar euskalari ospetsuak bearrezko lez eskatzen ebana). Zati eder baten, amaieran, beste 5.000 itz geiagokin osotua, egilleak berak 50 urte zear batuak. Itzaurrea: Gorostiaga'tar J., Xerexeta'tar J. ta Akesolo'tar L. euskaltzaiñak idatzia. Euskal idazle eta jakitun guztiak goratua. (Ale bi, narruzko azala).

* * *

CANCIONERO POPULAR VASCO, Azkue'tar R. M.'rena.

Euskalerriko abesti ta soiñuen bilduma ikaragarri ta zoragarria. 1912'gn Euskal Aldundiak eratutako saria irabazitako lana. Iparramerikar folklorelari ospetsu Edward Blis Reed'ek idatzi eban: «Lan au, idazti yayoa berez, erri-abesti jakintzan diarduenentzat bear-bearrezkoa da». Itzaurrea, euskaltzain gorenengoa dan Lekuona'tar M'ek eta J. M. Retana'k idazten dabe. (Ale bi).

* * *

DICCIONARIO HISTORICO-GEOGRAFICO DEL PAIS VASCO, Real Academia de la Historia'na.

Lenagokoa ber-bera barriztuta, 1802'gn asmo biurriagaz bazkun orrek argitaldua. Idazti onetan Euskalerriko erri, uri, auzo ta baztar —bi millatik gora— agiri dira, bakoitzaren edesti, jazoera, seme jator ainbat ta zeaztasunez osotuta. (Ale bi).

* * *

DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO VASCO, Kerexeta'tar J'rena.

Ogetabost milla abizenetik gora, erderazko euren itzulpenakin. Jaiotetxe, jatorri-agiri, lau margodun armarriak millaka, amaieran Gerra'tar Juan Carlos'ek batu ta argitaldu bage utzi euskuzan Garibai'tar Estepan'ek XVI gizaldian batu ebazan euskal jatorrizko argitasunak. (Lau ale, narruzko azal ornituak).

Eskatu zeaztasunak LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'ra, Bilbo'n, Prim, 43-3.º Urrutizkiñak: 23 66 01 - 24 33 01 - 24 87 93.

TA ENCICLOPEDIA ONEN IV ALEA

Urtebeteko atzerakadagaz —gero diñogunak agertzen dabenez— ara barriz aukeran «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren IV ale ederra. Bertan, margo aldizkarien tankeran, orrela atsegintsuago agertzen dala, Euskalerriko Edesti, Bizitza-barri, Arkeologi, Lutelesti, Giza-azterketa, Etxegintza, Elerti, Izkuntz, Sukaldaritza... ta beste gai ta jakingarri askoren barri alkartuta dakarraz.

Jakin ba-dakizu, idazti au azterlari gorenengoak egiña dala, ta margodun orrialde eder eta ugarikin osotuta etorten dala. «Txistularik» diñoanez euskal idazti bildumetako pitxi aberatsena da, «pues en ella se recogen los documentos más fundamentales para Euskalerria», ta neurr iaundiegikoa ez dala, idaztegietako gangar-astunen bearrik ez. «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA» (urteak zear alkartzeko ale laburretan agertu izana) «me parece una aportación admirable, de una erudición muy concienzuda y selecta y por ello muy digna de sincera felicitación», idatzi eban Camón Aznar'ek, Madrid'eko Ikastola Nagusian Filosofía y Letras Ikasmotako irakasle danak eta nagusi izanak.

IV ale onek dakartzan idazlanak jakingarrienetakoak dira, ara: «Analogía y diferencias vasco-catalanas», Eduardo Tarrero; «La verdad sobre Catalina de Erauso», Luis de Castresana; «Capitulares Vascas», Endika Mogrovejo; «Letra y música de las antiguas danzas de Gipuzkoa», Iztueta'k bilduak eta idazle onetzaz idatzitakoa ta orain arte agertu bakoa Garmendia'tar José idatzita; «Domingo de Agirre poeta del mar y figura señera» Zubikarai'tar Augustin; abar eta abar. Onetzaz gaiñera beste lan luze ta garrantzizkoak be argitara emoten dira, bakoitzaren idazti bereziak argitaldu dituala: «Biografía Universal de Claros Varones de Vizcaya», J. E. Delmas; «Peru Abarka» izkera bitan 1889'gn Azkue'k argitaldua; «El Derecho Foral de Vizcaya en la actualidad y los Derechos Humanos en el Fuero Vizcaino» Adrian Celaya'rena.

Idazti nagusi oneitaz baiña, ain txukun argitalduak izan diran oneizaz, urrengo baten idatziko dogu.

LAN JAKINGARRIAK BENETAN «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA» REN IV ALEAN

TORIBIO ETXEBARRIA

1887 - 1968



Eibar'en, gaurko Alfa'koak omenaldi bat eskeiñi dautse, atzenengo eun urte oneitan errian izan dan gizonik ospetsuenari, ta orolgarri-irudi bat jaso berak eta bere lagunak sortutako landola orretan.

Lenengo guda nagusi ondorengo lan-ezak eta gose aldiak eraginda, berau ta bera lako lagun benetalariak asi ziran langilleen arteko alkartasuna egiten, ta eskopeta ta osilanteen ondoren, gero Alfa izango zan lagunartea sortu, ta neke bideetan gora sutsu ibilli ziran.

Zaillena ta neketsuena eginda gero, erbestera joan bear izan zan, bere erritarreri zer jazo jakoen ikusita. An, erri-miñez jota, batera ta bestera, bere biotzean Eibar maitea ta aztu eziña. Maitasun onetatik ainbeste olerki eder euskeraz egitera etorri zan. Eibartarreri gosea kentzen, urrengo sakelak betetzen, ta azkenez, ez da ba dana ogi utsa, euskerearen bidez zentzuna be janariz indartzen alegindu zan bizi oso-osoan, berantzako eta bereentzako ezer aundirik egin barik.

Asko zor dautse Alfa'tik bizi diranak, baita eibartar guztiok be, gaurko omenaldi ori baiño zeozer geiago, ala ta be, ogetamar urte lenago ezin izango zana, egin da, naizta ez izan an danak; ziranak be izan ez danak.

AIXOLA

EGO-AMERIKAN SINDIKALISMOA

Lurralde auetan gaur, 276 milloietik 241 milloi indarzaleen menpean bizi dira, edo auek ipiñitako agintarien azpian. Neofaszismoaren ixpillu dira oeik, egun desarrolloari laguntzeko zenbait ikaste egiten badute ere.

Ez bada arritu CEPAL'eko Idazkari Nagusiak esatea, latino-amerikarren ekonomia nagitasun minberagarrian igitzen dala. Izan ere, zenbait errietan ekonomiari buruz gizon bati dagokion igoera bizitzan euneko 8 baldin ba-da, euren kontinentean euneko 1 gertatzen da.

Bestalde, UNTACD baten asmoak porrot egin dute ekintzan jartzerakoan. Aldatu nai zituten bai erri-aberats eta erri-txiroen arteko artu-emanak. Baiñan bere langaiak saltzen urtetik urtera geiago galtzen dijoaz, eta bide batez geiago ordaintzen langai auetaz EE. UU.'en Europan edo Komunista Laterrietan egin izan diran gauzak erostean.

Onetzaz gaiñera egizute kontu, ango gotzaiak «Idazki Nagusi» batean zalatu duten bezela, egunetik egunera diru geiago dijoala igesik atzerrietara. Ango egoera latza, egin berri diran estadistika auetan argiro dakusgu: 92 milloi gizakiri buruz eta langintz motetan onela azaldua (milloietan).

Lurgintzan	35,3 =	42,2 %
Lurgintz ez diranetan: *meatzkiak, industrietan, etxegintzan, tximistindar, eraman-ekarriak eta abar*	20,7 =	24,8 %
Serbitzu lanetan: *komertzio eta finantzetan; irakaskintzan eta abarretan*	27,6 =	33,— %

Eta lanerako gai diran langilleak onela banatzen dira:

Lanean diardutenak.		69,6 %
Langabeak		30,4 %

Sindikalismoari buruz, 92 milloi oien banaketa zenbait auetan dago:

Sindikato barruetan . . .	19 milloi	20,65 %
Sindikatu gabeak.	73 »	79,35 %

Politika eta ekonomiaren egoerak dakarki langillea orretara erortzea. Aurrerabidea ikusi bearrean atzerabidea dakuste. An, onegatik dago ain une larrian sindikalismoa, sozial-indarraren eragille bear lukenean. Zenbakieri begiratuz. Cuba geienik sindikatutakoa da, baiñan diktadura guzietan bezela sindikato bakar batean sartzea beartuak dagozalako. Cuba'k beraz, euneko 20,5 ematen du; Arjentina'k 11,2; Colombia'k 7,2 eta gutxien Haiti'k 0,1 bakoitza. Amairu laterri arturik, bataz-beste euneko 5'ekin gelditzen dira.

Sindikalismo bakoitza bere lur berezian tinkatua izan bear du. Baiñan «garun garbitzeak» an ere ez dira falta. Batetik, IADSL (Instituto Americano para el Desarrollo del Sindicalismo Libre) erakutsi, gertatu eta lurralde aietan zabaltzen ditu irakasleak. Auek, azkenean, AFL-CIO'ren makiñak gertatzen dira EE. UU. makiñista izanik.

Onetzaz gaiñera, sobietarrak ere mutillak agertzen dira kontinente artan galdu dutena ostera bereganatu naiean. Ontan, errusizaleak asko galdu dute emengo langilleen artean, batikpat ideolojiari buruz izan ditutzen burrukegaitik. Gerrilleroen jokabideak batzuetan, txinazaleak bestetan, trozkistak, kastristak eta gebaristak beren arteko asarreekin izan dira oiñarri-aultze orretarako.

Oraintsu internazional komunismoak bere erasoaldia indartu du, sindikatoak eta langilleak kontrolatu nairik. Zenbat gizon, diru, liburu, orri, ibillaldi, beka, seminario ta itzaldi ez ditu ematen Latinoamerikar Langilleen Mugimendu izenpean. Arestian, FSM'ek Budapest'en egindako Batzar Nagusian, Sobietar Internazionalaren Lendakaritzarako Uruguay'ko komunista ezaguna dan Juan Pastorino aukeratu du, Ego-Amerikari begiraturik, noski.

Argitu dezadan ere URRS'ek eta USA'k sindikato pluralistak ez dituztela maite. Ez dezagun, ordea dana beltz ikusi. Itxaropen izpiak ere ba datoz. Langillea, gaztea biltzen asi da oiñarri zaarretako Langille Muginenduan. Latino-amerikar sindikalismoak urrats sendo bat eman zuan 1968'gko. Orrillean CLASC inguruan izan zan langille batzarrean, onela mintzaturik:

Demokraziari buruz: «Kapitala eta Estaduarengandik deszentralizatzearen billa dabil egizko demokrazia. Eta demokrazi ori ekiñal batean aritzeko lau oiñarri auetan fikatua izan bear du: politikarako azkatasuna, gizakiaren azkatasuna, ekonomian eta sozial-jokabidean ere demokrazia. Onela bakarrik litzake benetan demokrazia, erriaren gobernutza, erriarengandik eta erriarentzat».


Eta sindikalismoari buruz: «Ixtoriz eta sozialki, sindikalismoak indarra damaio damokraziari. Beraz, gizarte-demokrazia eratzeko, bete-betean eta zintzo lan egin bear du sindikatoak». Latino-amerikan eragozpenak baldin badaude, ba dago itxaropena ere. Galerazpenengatik langilledia ez dago lo.

OLAZABAL

ITZ-EUNDUAK

(II)

Etxebarria'tar Juan Angel



ARGIBIDEA

(a.a. = atzez-aurrera)

ZEARRETARA.—A: Izen laburtua.—B: Bizia galdu. Agindu.—D: Bizkai'ko aldatza.—E: Dago. Bokal. Konsonante. (a.a.) utsik.—G: Burdin otsa (a.a.). Eleiz.—I: (a.a.) idunekoa. J: Izkia. Konsonante. (a.a.) zara.—K: Zenbakia.

GOITIK BERA.—1: Konsonante. 2: Emen.ez.—3: (a.a.) zenbakia. Portu (a.a.).—4: Iraiña.—5: Lau konsonante.—6: Bizkai'ko erria.—7: Legez. Mosu (a.a.). Bokal.—8: Itaunka.—9: Jarioa ebala.—10: Egoki.—11: Konsonante.

I'ren agerpenak:

Zearretara = Atz.—So; Zoli.—Urdaiak.—Me; a;k; Pago.—Bat; Udiri.—Burruka.—Ea; r; 0Z;—Bae.—*Goitik bera* = M.—eB.—Su; Abe.—Oratua.—A; D; R; B;—Tzakurra.—Zoi; Du; E.—Lapiko.—Ikaraz.—Gi.—O.

ZUBIRI - OTAZUA

NARRUZKO OIÑETAKO TA SAKELAK,

Era-barriak gazteentzat,

erosoak jaun-andereentzat.

Ascao, 4 **Bilbao, 5**

Z U B I R I

Gerri-loturak,

Azpi-jantziak,

Soinkera liraiñak.

Ercilla, 30 **Bilbao, 11**

ZUBIRI - MARDONES

ARGONTZI APAINGARRIAK

Artekale, 50 Bilbao, 5

Z U B I R I

Gerri-loturak,

Azpi-jantziak,

Soinkera liraiñak.

Artekale, 50 **Bilbao, 5**

ZUBIRI - OTAZUA

NARRUZKO OIÑETAKO TA SAKELAK,

Era-barriak gazteentzat,

erosoak jaun-andereentzat.

Pl. Campuzano, 4 **Bilbao, 11**

ERRIETAKO BARRIAK

Markina

D. Elías'i Agurra

Iraillaren 29'an, San Migel egunean, izan zan Markiña'n 30 urtean abade egon dan D. Elias'en agurra. Makiña bat mesede egin dau urte oneitan Markiña aldean. Gure agurrik beroena eta badakizu Markiña dana zurekin dagoala.

Odola emotea

Markiña aldean odola emoten dabenen alkarte bat dago, guztiz eun eta ogei bat. Batzuetan Basurto'ko gaisotegitik etorten dira odola etaratera eta beste batzuetan Kruzes'era joaten gara. Azkenenegoz Urrillaren 4'an. Noizik bein odola emotea ezda ezer kostaten eta zenbat mesede egin Ieiken! Egin zaite zu be alkarte onetakoa.

Itzaldiak

Urrillaren 4'tik 10'era «LA IGLESIA POSCONCILIAR» izenpeagaz, aste osoan itzaldiak izan dira, onek erderaz eta 18'tik 25'era gai beronegaz baña euskeraz. Jendea oso pozik geratu da.

Teresa deunaren jaiak

Auzuna onetan jai politak ospatu ditue. Dantzak (Zerutxu Taldeak), umeentzat dantza soltea, buru aundiak e.a. eta ganera gosegarri ziran danentzat ardaoa eta txokolatea duen.

Urbia'ko egotaldia

Artibay mendi taldeak antolatuta Urbia'ra urtera bat egin da. 28 lagun joan giñan eta bai ondo ibili be. Gero, guk ardao asko edaten dogula? Iru garrafoka ardao uste genduan bearko zirala eta eroan be bai, bidean bat apurtu eta alan ta be ardaoa sobra. Ardao gitxi edaten dogulako ete dago Markiña ain motel?

ANJEL

Bakio

Bizkai'ko baztartxu baten dago San Juan'go ermintxea, eleiza santu au itxas oaren gaiñean dago.

Ara zelan, gazte ta zar asko joaten dan bertara! Baiña zenbat bider geiago ta geiago joango litzakezan iñoiz konpontzen bada eleiza ori.

Gaur egunean, bere ormak noiz bera jausiko dagoz, eta bertara elduteko, zenbat alegin!

Aintxiñe, Bermeo'ko arrantzaleak eta beste asko gogoratuten ziran eleiza orregaz, gero, Bakio'ko erriak oratu ta gaur iñok bere ez daki zertarako diran eleizan batuten diran diruak, edo norentzat. Urtean iru edo lau jai dagoz santu onen izenean. Dirua egunero batuten da, baiña zer egiteko? Mezarik ez da izaten jai oneitan besterik.

Zergaitik erri batek eleizea erosi, gero zainduko ez badau? Non dagoz erriko abade ta erritarrak? Zer egiten dogu?

Bakio'ko errian gazte asko dago; egia da ez dakiela nora joan. Gazteak dira erriko gauzarik atsegiñena, baiña erriko ugasabari itxuraz, ez dautse ardura gauza atsegiñak.

Gorantziak danori.

XABIER L.

Mungia

Atxuri'ko jaiak dirala ta ez dirala, ezta-baida bat sortu da, ikusten dozun lez, Mungia'ko illeroko aldizkaria dan «Concordia'n».

Au sortzea ez da gauza arrigarria, baiña bai, euretariko bat-bere atxuritarra ez izatea.

Lenengoari buruz enoa ezer esatera, ondo ipini gaitu ba bere idazlanean. Baiña bigarrenari gauza batzuk argitu nai neuskioz.

Lenengo: Atxuritarrengandik zer ikasirik ez eukitea ba leiteke, guk ez daukagu ba maisutasunik orretan. Naita onek ondutzen ez daben arren, zuk aldizkari baten bidez atxuritarren aurka berba egitea.

Bigarren: Zuretzako burdi zar bat ta idi batzuk baiño besterik izan ez-pa-ziran bere, guretzat zerbait geiago izan ziran. Guk alegin guztia egin genduan, gazteok, eta batez bere batek, burdia atonduten.

Zer zan a ta aren inguruko gaztediaren esan naia... Guztiak ziñoen: «Ori da gauzaren ederra...!»

A, erriko irudi bat izan zan. Geuk erakutsi gura genduanä zan beiñepein.

Irugarren: Gure auzoereak bakarrik, egin zituzan euskeraz jai egitarauak, ta barrutik nai azaletik begiratuta, au da euskaldunak daukagun gauzarik egokiena ta garrantzirik aundikoena. Zuk, or diño-zuzan gauzak baiño askoz bere geiago izan dira euskal tajuko gauzak, abestiak kendu ezkero.

Laugarren: Atxuritarrak zuri ez dautsue ikutu. Birletar danok ez zaituet emen sartzen, bat izan da naste-borraste au asmau dabena. Alan ba, urrengoan ixilik egon. Ta zeure gauzak, beti, edertzen alegindu, gure antzean zer ikasirik asko daukazu-ta.

ABAUNZA'TAR MIKEL

Meñakabarrena

Moja batzuei buruz albiste laburra

Meñakabarrena deritxan auzoan moja-etxe bat dozu. Antxe, Sollube mendi aundiaren barrenean. Guztiz amaika lekaime. Geienak Gazteiz'dik eta Araba'tik etorriak. Iru euskaldun. Enparauak erdeldunak. Amabi urte daroez bertan.

Lekaimeok auzoan dagiena jakingarri da. Jakingarri ta jarraigarri. Auzoarentzat ez da mesede txikia onango moja-etxe bat bertan eukitzea. Ez, ez dira euren kautan bildu. Erriari begira bizi dira, auzora itzuliak, urkoari emonak. Ikus daigun.

Bertaratu ziranean, dorre-etxe antzeko etxe zaar baten asi ziran bizitzen. Auzoan etzan umeentzat eskolarik. Ango neskato-mutikoak Meñakaraiño joan bear. Kilometro bi t'erdi, ortxe-ortxe. Orduan mojatxoak, auzoaren premiña ikusirik, euken lekua erriari eskeiñi eutsoen umeentzako ikasgaiak emon zeitezan. Buruausteak izan ebezan, bai, orretarako. Alan be, ekiñaren ekiñaz nai ebena lortu. Dana utsaren truke.

Eurak ez dauke irakasterik. Klausurakoak izan. Orregaitik maistra bat eroan eben eta euren etxean bizitzen ipiñi. Maistra txeratsu, aparteko langille, euskaldun eta euskaltzalea. Gaur be antxe diardu lan-da-lan. Euskerari begira bagakioz, ez da laguntza urria olako maistra bat errian izatea. Puntu au, baiña, geroago argituko dogu.

Etxe zaarra bizitzeko egokia etzalako, barri barria egin eben. Eee...! Ixo! Ez eurentzako etxe-bizitza bakarrik. Gaiñera ikastetxe bikaiña, jan-leku ta abar daukazana, maistrarentzat etxe apaiña, eliza zoragarri bat. Guzti au auzoaren onerako.

Ze dirutza eralgi ete daben etxegintza onetan? Bost milloi t'erdi. Aor esanda! Amaikatxo naigabe, kezka, buruauste izan dabez eta gaur be ba dabez etxegintza ori dala-ta.

Dirua bear eta ongille batek milloi bi emon eutsezan. Ta orregaz etxekuntza asi Baiña guztia amaitu orduko eralgi bearrekoa bost milloi t'erditik pasa. Ona istillu gorriak etorrita. Prestamen aundi batzuk eskatzera beartuta egozan geroago epetan ordaintzeko. An, an mojatxoak zorretan bururaiño sartuta!

Zer egin? Ez beintzat kikildu. Ez burumakur egon. Ez aieneka asi. Ez negarrari emon. Zer egin? Lan-da-lan, zorrai ta etekiñai (erredituai) erantzun al izateko. Lan ortuan, ortukiak salduta zerbait ataratzeko. Lan-da-lan Mungiako Artetxe jaunaren eta beste lantegi baterako gauzak prestatzen. Klausurako mojak sekula ikusi ete dozuz tornilloak eta urragarriak (fusibles) euren lekuetan ipiñi ta ipiñi? Ba, joan Meñakabarrenera!

Lan-da-lan bordatzen. Lekaime nagusiak berak, larogetaka urteak bizkarrean izan arren, egun guztian diardu bordatzen.

Guztia erriaren serbitzurako egiñiko zorrak ordaintzeko. Ez, ez! Meñakabarreneko lekaimeak leporatu daben zama ez da iñundik be txantxetakoa. Karga ori noiz kendu al izango ete dabe? Jaungoikoak jakin!

Mojatxo onai eskerrak antxe daukaz auzoak ikastetxe ikusgarri bat, eliza eder bat, euskaltzalle sutsu dogun maistra argi bat. Antxe ari dira ikasten larogei (larogei!) neskato-mutiko. Antxe egin oi dabez batxiller-ikasketak nai ta al daben guztiak. Ikasketok gaur egiten diarduen gaztetxoak ogetazazpi dozuz. Antxe, janlekuan jaten dabe eguneroko bazkaria irurogei (irurogei!) umeek, etxea urruntxo daukelako. Jana mojatxo serbitzariak gertauta.

Ta lan guzti au utsean, ordaingarririk ezer eskatzeke. Borondatez emoten jakena artu, orixe besterik ez dabe egiten. Antxe dauke telefonoa. Mediku zein albaiteru zein taxis bati otsegiteko ondotxo datorkio auzo guztiari.

Beste on-egite batzuk ez doguz, gero, aitatzen. Zenbat beka lortu ete dabez erriko neskamutil gazteak ikasketak egiteko? Joan da jakin!

Ta auzoak zer? Ezer be ez zor aundi ori kitatutzeko? Bai. Prestamen baten eunetik bi t'erdiko erreditua. Orra! Guztira auxe: beberrogei ta amazazpi milla pezeta inguru. Gaiñontzeko karga guztia mojatxo adoretsuen sorbaldan dozu.

Euskeraren alde be zerbait egiten dabe. Zerbait baiño geiago. Ona argibide batzuk. Kristau-ikasbidea euskeraz emoten da. Umeak euskeraz irakurtzen eta idazten ikasten dabe. Kili-Kilirako lanak eurrez egin oi dabez. Euskerazko sariketa batzuetan parte artu izan dabe. Iñoiz lenengo saria euretariko batek irabazi be bai. Kili-Kilik eratuta aurtengo udaran egindako ibillandian, esan daustenez, ango gaztetxoak izan ziran geien. Euskal-kabi dala esango neuke nik ango ikastetxea. Euskal kabi, Euskalerrian gaur al dan giñoan. Ta zearka baiño ezpada be, lekaimeai dagokie ondorena. Lekaimeok ezpalira, an elegoke onango ikastetxerik, ez orrenbeste euskera irakasterik.

Ta meza? Mezea euskeraz emoten da igande, jai, lenengo bariku ta auzotik jende mordoxka doan guztietan. Euskera uts-utsean. Berbatxo bat be ez erderaz. Astegunetan, erriko jendea gutxi-gutxi danean, erderaz emoten bada, ori moja geienak erdeldun utsak diralako da. Ez da ori arritzekoa. Ez da jantziak urratzekoa. Errez ulertu daitekena baiño.

Meñakabarrena erdel-kabi dala salatu dau norbaitek. Ta mojatxoak errudun egin. Bai, zoritxarrez, Meñakabarrena erdel-kabi da. Euskalerriko uri, erri, auzo ta nik esango neuke baserri bakoitza erdel-kabi dogun legez. Zergaitik? Eskoletan erdera utsean umeei irakasten jakelako, egunerokoak erdera utsean datorkiguzalako, irratia ta telebista erderazkoak daukaguzalako, ta... abar. Orreek euskera ta euskal kutsua ondatzen. Ez moja-talde uts batek eurentzako dan meza astegunetan, erriko jendea urri-urri danean, erderaz daukelako. Olakorik esatea be...!

Bai, bai! Meñakabarreneko mojak erlijiño, kultura ta euskeraren arloan egiten daben lana aipagarri da. Ta ikasgarri.

PUXANA

Zaldibar

OÑAZE EGUNAK DITUGU

Bizitza onetan, danori aurkezten jakuz usterik gabeko zoriontasunak, baña bai naiko larregi diran jazokun mingarrizkuak be.

Zoritxarrez, orain gertau jakunak, guztiz arrituta itxi gaitu, usterik gutxienena izan dogulako eta... Au bai, benetan samintsua!

Zer jazo dan? Norek ez dogu negarra samur egin Garitaonandia'tar Gotzon, jaun agurgarriaren eriotzea dalata?

Egia esatera, ba-genduan naikua arabera malko orrek egotziteko. Zegaitik?: Ludi onetan izan dan artean gogamen orren duin larregian izan dalako.

Zenbat eragozpen bere bizitza laburrian ez ebazan bizkarreratuko bere lagun urkuaren aldezle izatiagaitik?

Ori guk dan danak jakin al izatia, guztiz gatxa dogu benetan, baña Urdulitzko urian, obiratze eleizkizunetara batzartu zan notintza ikaragarriak, naiko larregi adierazo eban.

Orrez ganera, azken aldi luzean Mañuko txadonan txaunburutza bere arburapean izan eban lez, guztiz egokia zan uritxo aretan, bere oroimenez, illeta bat antolatzea.

Aurre egunean iragarrita egon erara, ondoren igandean izan zan illeta ori ta bertaratu zan ostetza bardingabea, gure adimenean irazita daukagu aldi luzerorako.

Ardurarik barik, baieztu geinke: Bermeoko arrantzale eta enparau uritarrak, oso osorik an zirala, ta onen geigarri, nor urrutiko urietatik be etzan bertartua eurok maitasunez besarkatuaz?

Guztiok itun giñazen, arpegi danetan agiri zan itzaltasuna bada arrasoizkua, ta zuzenbideko utsa zala oldozten jarri ezkero, guretzat, aurrerapideko oñarririk andienetariko bat Goiko Jaunak, Bere magalpera eroan dozkulako.

Goian bego, gure gogoko izan dan Garitaonandia'tar Gotzon jauna.

GAIXORIK

Aspaldi onetan, gaixo maltzur batek oeratuta dauko gure lagun maite-maite dan Etxeandia'tar Serapi.

Asko gara Jaunari arren egiten dautsagunak lenbailen guztiz sendatuta ikusi dagigun.

EZKONTZA

Il onen seian, Itziarko Ama Neskutsaren txadonean, ezkon-lokarritu ziran Negugogor'tar Alberta ta Maortua'tar M reia.

Eztei eleizkizun orretan Zangotita' **Jon Imanol apaizak, zuzendu eutso** **ezkontzari dagokion itzaldi labur ba** **mamintsua.**

Ondorenean, Debako ospe andiko **tetxe baten izan zan oturuntza ta atseg** **garrizko arratsaldea talde danen arte** **igaro ondoren, agurtatu ziran, beste la** **rri batzuek ziar, ibillaldi bat egiteko** **moz. Amaigabeko zorionak biori.**

MAORTUA'TAR MARTIN

Tolosa

Belarriak zabalik

«1.971'gnetik ORTF-TV prantzesak, berta errialde-izkuntzetako irrasaioak emongo dauz: B dele'tik euskeraz; Marseilla'tik probenzalez; B taiñeraz Rennes'etik eta Tolosa'tik ozitanera.

«Sektakeria, dogmakeria» izenburuaz onek sakristaukerizko indirekta serafikoa «pasa» z zensoereari, aingerutxo idazleak: «Neure reflexio euskeldunei bakarrik zuzentzen diet, bestalde, ditut gogoan hartzen, euskal itxuraz, inperialismoa lakaio direnak».

Ederki. Orain batasunaren izenean argitu eg gizona, argitu inperialismo komunistaren lakai dirala lakaiorik lakaioenak.

Fraileen izenean ateratzen dan aldizkari bate auxe: «Fraileak eta monjak kapitalismoarekin dag eta hareentzat euskerak ez dauka ekonomiako tra dentziarik».

Eta erabiltzen dan euskeraren ederrez lilluratu fraileak siesta luzean lo gelditu dira. Euskera zaleak drogadiktoak nunbait.

Mauriac, prantzez idazle katolikoa il Omenaldi bat egin nai nioke euskaldunen alde an lan egin zuan gizonari. Aurtengo neguan «Noeud de viperes» euskeratu nai nuke. Beste bere esku artean artu ba'du lan au jakin nai nu alarik beste zerbaitetan jardun nadin.

Antzerkiak

Tolosa'ko OARGI antzez-taldea esku an darabilki, laister jartzeko, alegitar adiskide du Begiriztain'dar Iñaki'ren «Gizon eta apaiz langi antzerki saritua.

Nere ogeitabi antzerkiko sortakoak ere aztarri dabilzkie, ta aurtengo neguan jartzeko dira: U txuarrak «Zaldilaria» deritzana, eta Idiazaba «Axari» taldeak «Itzulera». Lazkaotarrak ere i ibiliko dira nere «Sor Gurutze» antzeteko.

Tolosa'ko «Udaberri taldea» ea irurogei dant eta abar osatzen dute. Auek, bere gurasoak dituzte. Ta garaitz aundienaz Euskalerriko esku guzietan dantzatu ba'dira txanpon batzuek sobra Benta-Aundi ostatuan neska-mutil, guraso eta a bildu giñan adiskidetasun onenean ospatzeko. zan jolas eta umore!

Liburuak

Ene adiskide ta tolosar jator dan Larrañag Garmendia'tar Jon'ek argitalduriko liburua esku daukat. Bi izkuntz ongi bereziak darabi euskera-euskera ta erdera. Onela izendatu «Euskal esku-langintza». Bejondeikela!

Linazasoro'tar Iñaki, tolosar egin zaigun marragatarra «H gabeko umoria» izenekiko libu eman digu argitara. Berak diona jarri ta na dugu: «Atxe» rik ez dijoa. Euskeranto'rik en Biotzak ez du atxe'n bearrik. Biotzak bear du UMOREA DA».

Irugarren liburua ere eskuetan: «Cate Biblica-Biblia Ikasketa». Egilleak: Arrinda Donato eta Albisu'tar Anastasio apaizak. Lazkaon jaioak. Erdera ta euskera-euskera, bi H zaleak ote ba langilleenak?

Euskera batuan pentsamentu filosofikoa: «I kapitalisten inperialismo hatroza santa-sekulako pitu dezagun, puebloaren Batasunak hobligatzen silensioso haguantatu dezazun hespaldatik korza raño trapera bat hasestatzen dizugun momentu portantean. Muerto inponentea zu segurantziz».

Euskera-euskera: Gudan, erasoaldirako otsak minberatzen gaitun bezela, minberatzen Batasun itza, gorrotoa gordetzen duten bu abotsez, datorkigunean.

UXOLA

ERRIETAKO BARRIAK

Bermeo

Gure maixuari agur

Garitaonandia'tar
Gotzon Jaun ona,
Euskaldunan arteko
Abade euskalduna;
Irakatsi euskuzun
Zer dan maitasuna,
Zuzentasuna dala
Gure ondasuna.

Kontseju eder asko
Emon zeuskun sarri,
Euskaldunontzat ziñan
Maixu maitagarri;
Gizon danorentzako
Anai agurgarri
Biotzez diñogula
zara txalogarri.

Errietako nausi
Agintari Jaunak
Badauke nun ikasi
Zelan gertu lanak;
Jarraitu nai ditunak
Gotzonen bideak
beti maiteko ditu
Euskal-Erri danak.

Goiko Jaungoikuak
Antxiña esan du
Ill bearra dogula
Goiz edo berandu;
Zuk goiko aberritik
Daiskuzun lagundu
Eusko anai guztiok
Gaitezan alkartu.

Abade erri maitale
Iñor ez lakua
Ori dala'ta bera
Ere maitatua;
Ezta ain errez aztuko
Gotzon argitsua
Beti esango dautse
Abade zintzua.

Bermeoko erritik
Agur Gotzon Jauna
Iñoiz ezin lei astu
Zure maitasuna;
Zure elburua izan da
Gure askatasuna
Orixe da guk bere
Eskatzen doguna.
Bermeo'ko erritik
Agur gure kutuna!

JOSEBA IÑAKI'k

Usansolo

Jolas aldia

Bear bearrezkoa, lanean aste guztia emon dabenentzat. Eta jolas aldi onetan, jolastu ta alkartasunaren alde egin ezkero, txalogarria-goa. Alkartasuna ago geienetan dagoen itza, baña biotz gitxitan aurkitzen dana.

Ta au olan dan ezkero, Labeaga'ko adiskide batzuk ta batez be gure arotz biak, auzotegi'ko alkartasuna sendotzeko asmoan ostiko-jolas bat gertatu eben, igaro dan Urrillako bigarren igandean. Euren gogoa, joko onen bitartez, ta onen ostean izango ziran barriketa-aldiekaz, otzituta egon dan alkartasuna, alkar ikusi ezinik ez bada be, bai agur otz bategaz sarritan egon diranentzat, otzaldi au ebagi, aurrerantzakoan danok bat izan gaitezan. Ta arazo au, lenengo maillan beintzat, ederto aldatu dabe, egin be. Lemona'ko jolastokian, gazte ta zar, emakume ta gizon, euskaldun ta erdeldun, danok alkar ikusi genduan.

Ostiko-jolasan mutil zarrak alde batera ta ezkonduak bestean. Danontzat biotzetik urtendako txaloak ta aupadak. Jakiña, ezkonduak euren taldearen alde, ta ezkondubakoak, batez be neska gazteak, eurenen alde, batek baiño geiagok gogoan eukela, ia txalo ta aupada areikaz, jokoan egoen baten batek, berotasun areitan zeozer esaten baeutson.

Dana dala, ainbat barre garbi, txalotza ta abar entzun genduan. Ta zoragarrizko gol bat, arotzak (beste izenik ez dakit) sartu ondoren, bere emaztea jolastokian bere senarrari mosuka ikusiaz, azkena! Ezkonduak irabazi 3 ta 2 baña ez da au garrantzi aundikoa. Bai an egon ziran arpegi alaiak.

Onen ondoren Zornotza'ra bazkaltzera. Tamalez gizonak bakarrik. Urrengoan, danok, gizon ta emakume alkartu bear giñake. Euskaldun gizonak bere nortasuna azaldu dedin, sabela bear dau beteta. Bazkari onetan alkar obeto ezagututzez, beste adiskidetasun bat sortu zan orain arte ezagutu ez doguna. Barriketaldi, soñu ta abesti batzuen artean, danon gogoa, Labeaga'ko auzotegia beti bat izan daitela, bai onerako bai ta arazoak aurkitzen diranerako be.

Olantxe izan dedilla!

ATXUTEGI'TA JULENE

Arrasate

Irakurri dut AGUR'en 5 g. zenbakian Anza'tar Andoni'ren idazlana eta pozik irakurri be. Neuk ere irakurri nuan Arantzazu, aldizkarian uraixe bera eta iritzi bardin-bardiña atera'nuan. Au egiztateko ara zer idatzi nuan or Bizkaia'an argitatzen dan aldizkari batera: «Beste zio bat dut ondo ez artzeko h ori. Askotan egon naiz begira ZERGAITIK erabilli bear dugun eta orain arte beintzat ez dut ikusi arrazoi berezirik. Ori bai, entzun dugu bein baño sarriagotan, Arantzazu'ko batzarrak erabakiatzaz, baña ori guzur aundi bat da. Baita irakurri dut AO eta OE «h» barik idatzi ezkero oker-bidea artu dezakela. Au ez da bat ere arrazoitsua, ba, naiz Euskaltzaindiak naiz erriak artzen ba-dute «h» barik erabiltea ezdago bildurrik okerretik juateko». Au da beraz nik idatzirikoen zati bat aldizkingi orri.

Onegaz gaiñera beste gauza bat esan biar dut. Negargarri da gure euskera aldetik begiratuta, baña bestalde barregarria be bai. Il onen 4 g. neko «Diario Vasco» eta Azitain'go eleizaren barriztutea da-la auxe irakurten zan: HORA HOR SURE SEMEA. Lenengoa begiratuan ez-nun antzik eman latin edo beste izkuntza bat otezan, gero ondo irakurri bear izan nuan euskera nai zuela izan igarteko. Nora goaz!

KEREXETA'TAR P.

Arratia

Uri-zarra

Solo-lanetan aidak, sasian katez lotutako auntzaren beak, eta oillotegiko jaun arroaren kukurrukuak oraindiño bizi-bizirik iraunten daben auzotegian izan nintzan, Urizar dorre-etxeko katu zarragaz. Katu onek 83 urte ditu bizkarrean, bai-ta zazpi luki edo azegariren maltzurkeriak bere, kolkoan.

Ate nagusian, eup! egin ondoren sartu nintzan barrura, sukalderaño, eta mai beteari aurrea emoten eutsala ta bigarren belaunaldiko aingerutxoa altzoan eukala aurkitu neban, Santa Lutzi ganeko atxaren orpoan bizi dan katu begikoa, Serapio urtesua.

—Kaixo, Serapio, adizkide.

—Kaixo, lagun zar.

—Bizkaian jayo dan aldizkari barriarentzat barri billa natorkizu. Elespe'tarrai buruz eta etxe onetzaz zer esan zeizkit?

—400-500 urtez onaniz oraiñarte emen jayo izan diran guztiak Elespe abizena izan dabe, eta orra emen non doguzan izen bardiñeko elespekume bi bere.

—Etxe oni «Jentil-etxe» bere deitzen dautse, eta gizon aundi begibakar izugarrien bizilekua izan zala bere maiz, sarriaskotan entzun dot.

—Bai, olaxe da. Esate orreik baiña, neskatillak illuntzean goiz etxeratuteko eta ume negartiai loarazoteko esaten ziranak dira. Morrosko aundiak bai-ziran, orainguok txikiak ba-gera be. Neuk ezagutu nebazan ezkaratz ontako atepean makurtu bearrean izaten ziranak.

Etxeari buruz

—Arrati'ko mugapeetan eztogu ezagutzen aulako beste etxerik. Nork, noiz eta zein asmotarako egiña izan zanik esan al daustazu?

—Nork eta noiz egiña danik ezin dautzut erantzun, zertarako egiña izan zan beronek diñausku.

Begiratu: Or dozuz burdin sendoz esitutako leioak, eta emen doguz txiki biribillak, bai-ta estu luzangak be, barrutik at, kanpora tiroka ekiteko berebizikoak. Supiñak, kañoiak bere ba-ziran emen. Arteaga'ko abadegaien etxerako bidea artu eben eta arrezkero barririk eztogu izan.

Etxepea sakon-sakona zan. Sapaitik zintzilika umeentzako jolas-tresnak, bolatoki ederra ta zaldientzako uraska apaiñak ezagutua nozu. Abelgorrientzat bizileku biurtu ta baserri eran jartzeko lur ta arriz bete genduanean or gelditu ziran betirako azpiraturik arrizko txirlo-bola ta beste gauzarik asko. Ezin ukatu ba, bertako lenen biztaleak jauntxu andiki gudazaleak ziranik.

—Jentil basajaunak izan baziran orraitio, eleizarako bideetan oiñetako urratze geiegirik ez eben egingo.

—Itaun-galdera orrentzat ez dot erantzunik, azken tokia baiña, eleizan izaten eben, eta ez alaolako tokia, gorpu bi naiz iru batera eortzeko zan, eta gaiñera burdingorrizkoa, kobrezkoa. Eleiza erre ta barriztatu zanean, aldi artako txaunburu edo parrokoak saldu egin ebala zabaldu zan, baiña, eztogu barri ziurrik, eta ba-litzake Bilbo'ko erakustetxe, museoren baten izatea.

—Eta ateburuko armarri ori?

—Begirakada asko ikusia da, eta bat bakarrik izan da erromatarren garaikoa dala esan dauana. Iurre'ko kapitoi militarra.

—Agur, Serapio. Emen izango dozu AGUR gazte kementsua, emen izan dogun alkar-izketaren barri Euskalerri'ko txokorik ezkutuenetara eroango dauana.

—Agur, adizkide. Euskeraren osasunerako ezer onik egin al ba'dot, nai dozun arte.

LANDAJUELA'TAR A.

Arga'ko Miranda

Igaro dan udean, larunbat-arratsaldeak eta igande gcienak KARKAR-Napar erritxoan igaro nenduzan eta ainbat adizkide aurkitu nebazan. Eurekaz alkar-izketa asko izan dodaz eta gure artian baketasuna ta alaitasuna izan dira ugari.

Lenengo igande batean, uda joan ondoren, nere senditarrakaz Bilborantz urtetzeko nengoala, ango adizkide batek esan eustan: EZ AIZTU GERO... Datorren illian, Urrillan 11 garrenean, Arga'ko Miranda'n eiztariak egingo daben jaira etorri bear zarala. Baietza ta besarkada sutsu bat emon ondoren, Bilboruntz urten giñan. Jai orrek dirala ta eztirala ainbeste entzute izan nenduzan eta orretxegaitik, ara joateko erabakia artu neban.

Illa onen 10 garranean, larunbatean, bazkaldu ta gero, Bilbotik urten eta Karkar' erantz joan giñan, ara illuntzerantz elduteko. Karkar da orain, Naparran, gure bizi tokia ta ezeunkie ziñestuko zelako gizadi ona bizi dan inguru atan. Urrengo egunian, 11 garrenea, Karkaren goixeko bostetan urten eta Miranda de Argara, bost terdietarako eldu giñan.

Erriko txaunburua ta eiztari asko aurkitu genduzan edaritegi baten, Meza esateko gertasunak egiten. Asko izan arren, an egozan danak, zer nai edan eta opiltoak jan ebezan, Meza esan aurretik. Zer zor genduan itaundu genduenean, geiago artzeko esan eta ON EGIN DAIZUELA..., erantzun euskuen. Meza entzun ta gero, gizon asko taldetan batu ta eiztatzen joan ziran; beste batzuk be, taldetan alkartu ta, errekara joan ziran arrantzan...

Makilla bana eskuan eta zorro-txiki bat lepuan arturik, nere semia ta ni amairuko talde batera batu giñan. Talde askok erritik urten eta euren lurraldeak ibilli zituen eizan... EUN TA BERROGEITAMAR baño geiago, eper, kui edo koneju ta erbi batu ziran eguberdia baño len. Erriko gizon batzuk eiztariekana etorri ta eiza errira eroaten eben, an egozan beste batzuk, lumetu ta azala kendu ondoren, gizonezkoentzako bazkaria apaintzeko. Emakumeak emen ez dauke lekurik... Amabiak ingeruan, oindiño mendian gengozala, baña erritik ur, euria asi zan eta, azkar azkar, erriruntz joan bear izan genduan. Errian be euria izan arren, suak biztuta egozan eta erratillo aundi batzuk kea botatzen ikusi genduzan. Gizon eta emakume asko, ogia eskatu, orretarako ipiñi eben toki baten, eta arraiña oliotan erretzen egozan lekuetara joyazan, arraintxo baten eske... Euria zan lez, ardautegi batera sartzen ziran, edariren bat artzera... ta JAIA AURRERA JOYAN. Ainbeste arraiñ oliotan erreta ikusi gendun lez, zenbat arraiñ arrapatu ete eben errekan itaundu gendun. Larogeitak kilo sarbo edo barbo arrapatu ei ebezan. Beste erratillo aundi batzuk be an egozan, euren usain gosua gure surretatik sartzen... An, eiztariak ildako eper, koneju ta erbiak erataten ziran. Euriten jarraitu eban lez toki-itxi batzutan batu giñan, seireun baño gizon geiago. Dan danak betetu giñan ondo baño obeto. Ogia ta ardoa be ugari egozan. Zer esanik bere ezta, on onak zirala... Naparrakoak ziran ta. Sagar eder asko ta akeit, txola ta txokorrak banakatu ziran. Bazkaldu ondoren gizon geienak, ereslari-bazkun edo musikalariak aurretik genduzala, erriko kale guztietatik ibilli giñan biribilketa alaiak entzuten eta erriari deitzen erriko enparantzan izango ziran jaitxuketara.

Nere bizitza luzean jai askotara izan naz..., baña olakorik... iñoiz be eztot ikusi. Alaitasuna, anaitasuna, senditasuna... ikusten zan inguru guztietan. Gu, Bizkaitarrak giñala entzuten ebenian, euren anaiak giñala esaten euskuen eta guk, poz pozik erantzuten genduan, anai on batek besteari erantzuten dautson lez. Gu, Naparrako erriberan, anailez artzen gaitue ta gure biotzak bizirik dagozen artean, guk be anai onak lez artu biar doguz Napar guztiak. Anai artean be, batzuetan, burrukak izaten dira; gure artean be izan doguz ta, baña gizon zuzenak, burruka eta guda geiago nai eztogunok, ona ta ara, joaten alegindu biar gara, alkar ondo ezagutu ta biotzez maitatzen asi gaitezan. Alkar ondo ezagutu ta maite diran gizonen artean ezta guda edo griña geiago izango ta. Gutxiago, gizon orrek, guk bezela, anaiak gariala dakienean.

Irakurle maiteok, inguru guztietan jai eder asko izante da, baña Arga'ko Miranda'n eiztariak egiten dabena lakorik, iñun egiten danik, eztot entzun. Ango Napartarrak ezagutu ta eurekin egun eder eta alai bat igaro gura ba dozue, zoaze datorren urtean Miranda de Arga'ra, ta, ziur nago, an ikasten dozuezan oarrikasiak etzatzuez iñoiz aztuko. Ni, beñipein, Miranda de Arga'tik alde egin baño len, izenpetuta geratu nintzan datorren urterako, Jainko lagun...

KEPA

Ibaizabal aldetik

Bizkai'ko ibairik urtsuen onek buztartuten dituzan lurralde ta erriak asko diran ezketiño, gaitz izango da danetariko zerbait idatzitea, baiña datorkiguzan izparrik urtenenak idazten aleginduko gara aurrerantzean.

BASAURI'N

Urrilla'n 11'gn. asita izan dabez basauritarrak erriko jai nagusiak, Paustin Deuna dala-ta egiten diran jaiak. Aurten, jai orreik antolatzea, gaztediai, taldeka gertuai, agindu eutsen Udalak, orretarako txinditza mordo eder bat emonaz.

Talde, orreik, baiña, orretara agin-duak izan ziralako, edo berez euskotasun bageak ziralako, atserri oiturakoak izan ei-ziran antolatu ebazenik geienak, eusko giro gitxi edo bapere bakuak. Jai orrein tartean euskal-abesti jai bat gertu eben bañа, gorengo mallako abeslariak ez ziralako, bear zan besteko zabalkundea egin ez ebelako, edo ardura andirik artu ez ebelako, jai ori ospatu zan aretoa ez zan bete, ez gitxiago-be.

Basauritar agurgarriak!, borondaterik onenaz, bañа, ez zarie euskeraren etsayari «jokua» egiten ibilli jai orreetan zeuok eztakizuela? Nik baietz esango neuke.

Jakin bear da, euskaltzaleok zerbait egin guradogunean geuk bakarrik egin bear dogula eta ondo gertuta, etsaiak irri-barrez ikusi ez dagiguzan. Urrengoan, gogoan izan ta bear dana, zeuok euskaltzaleok bakarrik, egin eusko jaiak.

GALDAKANO'N

Aurretik iragarrita aurkitzen zan lez, Urrilla'n 18'gn. ospe andiaz ospatu zan errian, Bizkai'ko bostgarren ziza azalkunde-leiaketa, bertoko «Peña Santa Cruz» jolas jakintza bazkunak eralduta. Eta, aurreko urteetan leiaketa bikaiñak izan ba ziran, oraingoa obeagoa izan dala bildur barik esan geinke, bertaratu ebezan ziza mueta asko gaitik, leiaketalari ugari ta bertaratu zan ostetza apain ikusgarria gaitik eta, zelan ez! bertan ikusi zan eralguntza gaitik.

Jai ortan izan genduban baita Barcelona'tik beste zeregin barik etorrita, bere emaztia lagun ebela, Menal'dar Erramun, katalandar jatorra, Madrid'eko urrutikuskiñean ziza gaiaz ospetsu egin dana azken aldian.

BEDIA'N

Antziñako erkal edo errepublika ontako gaztedia losorroa astinduten asia dago era askotara, aspaldixuan Barrenetxea ta Leiza mutil gazte kementsuak aurretik dirala, leenen eusko erri-jakintzan ta beste arazo askotan ta orain gure izkuntzan, euskera arazoetan. Kementsu dabiltz eusko ikastola bat, edo orren bearkuna beteko daben zerbait egiteko asmoaz. Laster baten asi nai dabez ikastaroak.

Asmo txalogarria benetan gazte zintzo orreen asmua! Kontuz baña, adizkideak, irakasliak aukeratuten dozubezenean, euskera irakasteko atxakiz euskeran ta Euskelerrian nastea sortutzen dabiltzanak izan ezdaitezan eurak!

DURANGO'N

Urrilla'n 31'gn. ta Azilla'n batean ospatu zan, aurreko urtietan legez, Durango'n, eusko idazti ta eresmintz (disco) azokea, bertako Udalan ta ego aldeko Euskalerriko lau Aldundegien babezpean Gerediaga Alkarteak eralduta.

Ogei ta bost idazti ta eresmintz argitaratzalle arkeztu ziran azoka goralgarri ortara, iñoz baiño idazti ta eresmintz geiago salduaz, bertan jakin genduban lez.

Azoka ortan, ez zan sal-erosketa bakarrik izan, asko izanik bera, gogo ona ta alaitasun garbia be izan genduban an ospatu ziran eusko dantzaketa, txistu ta beste soiñu bikaiñari esker, Beste garaipen txalogarri bat geiago Gerediaga Alkartekoak lortu dabena azoka onekin eusko jakintzaren onerako. Zorionak eurei!

Lerro oneik argitalduten diranetik ainbat egunera izango doguz urtiak daukozan egunik gomutagarrienak, Gabon jaiak eta urte azkena, baña, ordurako zenbaki au baiño besterik argitaldu ezin litzaken lez, egun zorionak opa dautseguz irakurle guztiai, baiña, iñoz aztu barik miñez irauten daben anaiakin!

BASA-JAUN

EZI MAITASUNEAN MAITASUNERAK

EUSKALDUNA TA GOTZON

Arrituta nago ezpai artean,
baiña egi aundiena da, il zan.

Ezin dot sinistu alan bere,
ikusiak atzerantz daragizte.

Ogetamalau urte, gazte, zindo.
Egunero izan zan langille zintzo.

Aritz eder baten antzeko zan
ta Jainko indarrak ebagi eban.

Euskal aritza lur gaiñean dago
il-otzik al dago ala biziro?

Sasoirik onenean ebagi dau,
giarra uts utsa izan da berau.

Sinismena, argia, indarra izan da,
ta bere gogo zintzoz beargiña.

Bizi utsa izan da jendearentzat,
gogoz ta odolez euskaldunentzat.

Bere nai guztia opaldu eban
anaien alde il-arterañokoan.

Bizia erein eban lur gaiñean,
igaliak agertuz gizonetan.

Millak urteetan millak aritz eder
bere ondoren ezin ziran asper.

Emen, bizi da Gotzon langillea
lagun maitasunez inguratua.

Illobian datza bere gorputza
baiña gogoz gizonetan biztu da.

Aritz onaren enbor mamitsuak
ugari ta sendo dakarz adarrak.

Euskal-erriak ba-ditu semeak
siniste bigaz, ondo ornituak.

Gizonak bear daun maitasun garra,
bizi-bizirik, agertu zan dana.

Bere erria maite eban gizona,
egiz, lur orren gaiñean santu da.


O Euskal-erri gurea negarrez,
zeure seme gaillenak il-bearrez.

Egizko gizon aren eriotza
askorentzat izango da bizitza.

Egi ta maitasuna ikusi nitun
sinismenagaz alkartuta Maiñun.

Millaka landara barriak datoz
surik onenaz berotuta gogoz.

PAULIN



ZABAL-ZABALIK

Urduliz errian, lau-bide deritxon bidegurutzean ezkerretera artu ta ordulauneko bidean, «Zabale» izeneko basetxea. Muno batean, solo-zelaiez inguraturik eta atzerago basoa. Antxe jaio ta bizi izan da abadetu artean gure Garitaonandia' tar Gotzon. Ama, izekoa, anai ta arreba lagun. Aitarik ez eban urteak zirala.

«Zabale»'n pake ederra barru-inguruan, ikuspegi alaiak atze-aurrean, ta Ama Izadiaren soñu ta gozotasuna orduoro. Solotik etxerako bidean baserrikoak aurkitu oi ditugu askotan Gotzon'en billa goazala. Ta bein barrura, sukaldean giro paketsua, arpegi irribarretsuak eta izketa gozoa. Etxe dana zure eskuetan sartuz gero. Agurkeran atadiraiño lagunduko eutsuen biotz-zabal eta ao-bigun. Barriro joateko galetsu urten bear beti andik. Alako alaitasun-pakea sortzen esparru aretan.

Ainbat eta ainbat euskaltzale ta mendizale igaroak dira andik. Ez dot uste bat ere arpegi-zorrotz artuko ebenik. Ta guztiok «Zabale»'ko ur garbia, gogoarena batez ere, edan ta gero ao gozatzen luzaroan.

Alako batean, eriotzak bere atzaparra ara bota ta Gotzon abadea eroan dausku. Itun-itunik ikusi ditugu zenbaitzuk jazoera ori dala-ta. Ez dautsuet esango, ez etxekoei ez adizkidei itunik ez egoteko. Larregi maite genduan abade gaztea; bere utsak itun jarriko gaitu oraindiño askotan. Alan be, «Zabale»'ko bizilagunak eta joandako Gotzon'ek bezela, ituna ta oiñazea gora-bera, jarraitu dagigun beti, berak lez, danerako ta danontzako zabal-zabalik.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

DONOSTIKO «ORIXE»

IKASTOLAN

1.970'garrengo Urrillak 16. Irakasle gaztetako bat, lau urteko poxpoliñei, ongi etorria egiten goxo goxo:

—Zuen Ira urruti joan da baiña etorriko biar. Gaur gukin ibilliko ederki, e? Ubatxo'kin eta Koldo'kin eta, bai ederki!

Biaramonean antxe zeukaten ikastolan zai Ira begiak irri-parrez. Une artako irakasle-egitekoa jator bete nai ta aurrek giro alaia, giro ariña bear, ezer egingo ba-dute.

—Onatx, Ira etorri Mañu'tik. Oso gaixo zegon ango Apaiza ta: Atoz, atoz gizaxo ori, atoz, Zeru'ra, esan zion Zeru'ko Aita'k. Emen ez da miñik. Emen ez da negarrik.

Guk, maite genun eta, alde egiten ikustean, negarrez asi.

—Ez egin negarrik, zuek ere, guziok etorriko zerate Zeru'ra ta, esan zigun. **An guziok alkarrekin beti. Beti pozik. Aita ta, Ama ta, umeak eta, guziok antxe alkarrekin beti zori oneko Zeru'ko Aita' kin.**

Ta, aizu Ira, an ikastolan txokoko bigarren apalan ba-dezute, ba, ontzi polita ta mataxak barrenen? Biar eman, e, mataxak nexka-mutikoeri nire egun aundia da ta.

—Mañu'ko Apaiza Zeru'ra joan dalako, mataxak jango ditugu, ba, gaur. Maite-maite ziñuzten zuek ere.

Aurrena, ordea, otoitz egingo degu elkarrekin, arek Zerua'n eta guk ikastolan. Ba-zekin JAINKO EDERRA ebesten.

Ta txikiak eskutxoak bildu ta ben-benaz:

JAINKO EDERRA
ON-ONA ETA AUNDIA,
ZERUKO AITA
OIUKA ZURE AURTXOA:
GORA JAINKOA!
ZUREA NI OSO-OSOA.

—Andre Mari'ri ere zerbait esan bearko diogu, ba:

ZERU'KO AMA
EMAN ESKU MAÑU'KO APAIZARI
TA ERAMAN XUXEN-XUXEN
ZERU'KO AITA'GANA.

«Aitaren» egin eta mataxak jatera. Ua poza ikasletxoak. Bete-beteko poza. Irakasleak irri-parrez... begiak.

* * *

Orra, irakaskide lagunak, egun orretako nire erlijio ikastaldi bizia.

Orra, batez ere, zuek nire-nire ikasle izan eta gaur aita-ama gazte edo bidean zabiltzatenak. Zuek gogoan ari naiz.

* * *

Zuen-zuenak dituzue seme-alabatxo oriek, zuen puxkak. Zueri dagokizue, beraz, aurren-aurrena txiki orien eziera. Aita-amak aurretik eta gu, irakasleok, zuen ondotik, zuen laguntzaille.

* * *

—Ira «AGUR»'en ikusi ta pozik, adizkide? Zure utsunea betetzeko langille sailla bear gure baratzean. Ogei ta amaleu urteren buruan, zure eriotzak lurpetik aterazi ta ona al duntxoa egiten.

IRA

Gotzon, abade-gizona

Gregorio zazpigarrenak esan eban: «...zentasuna maite izan dot, ta ori da... atzerrian ilten naz».

Gizon a, oso-osoan, urunduta il zan... zuri bat egiteko egizaleen janaritzat.

Gotzon, zure bizitza ta eriotza iku... orixe datorkit burura. Egia eguzki bat d... egiaren urre-bitzak miaztuten ditu laiño... tzak ta ondoren agertzen dira urdiña ta ...

Zuk gogo laiñoak, bizitzako odeiak ... rutik uxatzea nai izan dozu. Gizonari, ... legez, erantzun bear jakola eritxozun. Be... bizitzea ta gizona guzurra besterik ez ... Au ostera, nork ez dogu, olan, epaituta...

Gizon guztia ta ikusten dogun g... sapukeritzat ezin bota leiteke. Jatorriz dau... zerbait eta asko egizkoa dana. Gure on... ta beste batzuei, lotsaz, on egiteko, berez, ... doguzan ondasun ugariak.

Bide onek urratu ta argitzea zan zure... Ta egiz, gogotsu, artu zenduan zuretzat... bear ori. Astuna zan, baiña egia. Gogorra... baiña zentzunezkoa. Ta egiak eta zentz... gizon zuzenari dei egiten eutsoen.

Zure berbea entzun ebenak, askok, ... artu eben. Egizale zirenak poztu egin ... Ta ori dala-ta, bide on bateri oratu ... Egiak egia dau egarri eta areek be egizak... egiaren egarriz itzi dozuz.

Egia, berez, da adimen onaren janari... artu zendun nortasuna, beti, olan izan... Egizale. Ta egia alderdi guztietan b... zenduan.

Elizan zure elburu bakarra zan ... janaria lagunei emotea. Guzurraren ... derik iñork ez dauka, egia ostera zu... eskatzen dau. Berez, burudun guztiak ... billa joan bear leuke.

Eleiz ormatik kanpora be egi billa... ziñan. Gauza bakotxa bere jaubeari ... guraz. Ori zan jokabidearen jatorra...! ... egiak ba-ditu bere etsaiak. Burukomin au... izan zenduzela diño zure inguruko ...

Baiña gizonaren kemena, iñoz, ez ... kikildu bear, ta zure adorea etzan ma... Egia ta gatza erriarentzat izanik, egiz, ... giñaike zeure gogoz bere, erria gazt... argitu egin zenduela.

Zuzentasun-zalea izan ziñan. Ta ... abadetzan orren billa ibili ziñan; Zure ... ezpata bat irudian., sarri askotan, zuzen... keriaren aurka. Orrek asko poztu ta ba... minberatu egin zituan.

Guztien gogoa ezin leiteke betetu. Z... zaleak indartuta ta baketuta geratu ... euren asmo onetan. Benetako sua, garra, ... zugandik artu eben. Zure erria bere eza... onenekaz maitetu eben. Ta ori-gaitik zu al... egizale, idazle, abeslari, irakasle, guztia... ziñan euskal-erriarentzat.

Ta ori guztiori adizkide ta erri-ma... baten gisara egin zenduan. Ez ziñan ... besteak goitutera, ta bai jendeari argi eg... Ori ikasi zenduan Maisuarengandik. ... irakastea ta zor jakozan egia ta bizia e... emotea.

Lagun bakotxak nai erriak ditu bere... ta bizia. Jaubetzaren ondasun onek lagu... erriari aditzen emotea, lagunak eta erri... betea da. Lagunak egin leiken egiteko eder... egia besteai adierazten emotea da.


Lagunak baita, berez, dira zuzen... Zure inguruko jende guztiak zuzentasun... billa ebiltzezan, ta zure gogo ta ... zuzena zana, beti, eskeiñi eutsen. Ta ori... ta, zuzen-zaleak, gogor, artu ta gorde eu... irakatsi egizkoa.

Zu bizi izan zaran inguruko lur g... arrituta geratu da zure eriotzaz. Len ez... ez zinduezenak, zure bizitzaren barri gab... dabiltzaz. Zer egin dozu, zeure on... millak lagunak dabiltzaz-ta il ondoren? ... zuzentasuna, maitasuna, bakea ta bizia on... dozuz euskal-erriaren alde.

Ama baterentzat au izan da samiñ... poza...! Seme gaztea geiago ez dau il... lurrean. Baiña bai semearen fruturik ... ikusi dau. Bere semearenganako ma... illezkorra. Seme zintzo ta beargiñak bereg... dau erria.

Gure Gotzain eta Eleiz buruentzat ... sakona ta pozgarria izan da au. Anai... nire samiña agertzen dautsuet. Begira ... gana doazen azkenengo egi orduan je... ikaragarriak. Egia, zuzentza ta mai... bake on baten alkartzen dira Gotzon... RION.

SOLOZABAL'DAR PAULI




Agur'erako, il-zorian, Gotzon'ek osotu al ezin izan ebana.

AGUR

ILLEROKOA
8 ZENBAKIA

1970 - LOTAZILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA



Etxebarria'tar P. S. I. Aitak Xuipientow (Formosa)'tik, Gabon-agurrak bialdu dauskuz danori.

ZATOZ, JAUNA

Abenduko gure kristiñau-batzarretan «zatoz, jauna» entzuten dogunean, eta zenbat bidar, gure barruan esan dogu: «zelan etorriko da ba, gure Jauna, len etorri zan eta?»

Baiña gure izakerea eta gure gizartearena bear dan lez arakatuten badoguz, oiuz eta negarrez, esan bear geunke egunero: «Idegi beitez lañoak... zabaldu beite lurra... betor Salbagillea».

Gure egituretan, udaletxeetan, errialdeetan, Euskalerrian, gizona ez da aintzat artzen, ez dago barditasunik, ez dago anaitasunik, ez dago bakerik, ez dago zuzentasunik... Jauna oindiño ez da etorri.

Gure lantegietan: batzuen joputzea eta beste batzuen nagusikeria eta guztien diru-egarria agiri dira. Batzuen izerdiz beste batzuk loditzen dira. Geienen bizitza estutuz, gitxienak nasai bizi dira.

Gure eskoletan ez da erri-zaletasunik irakasten, ez jako erri-izkuntzari bear dan indarrik emoten, egiña aurkitu dogun erria eta bere jakintza ez dira aintzat artzen. Non dago zuzentasuna?

Gure gizarte artu-emonetan gorrotoa ta gogorkeria, espetxeratzea ta eriotzarriskua agertzen dira. Non dago gure Salbagille etorria?

Illuntasuna ta benetako Argia alkarregaz burrukan, egia ta guzurra nastean, zuzentasuna ta eskubiderik eza alkarren aurka... Non dago gure Jainkoa?

Etorri ziñan, baiña... zatoz Jauna.

* * *

Eta garraztasun oneik barruan doguzela,

«Aintza zeruetan Jainkoari
Eta bakea lurrean
Aren gogoko gizonari»,

biotzez eta barru-barrutik abestuko dogu. Kristoren maitasunak gure zauriak osatuko ditu eta beragan dogun itxaropenak gure begietako negar malkoak legortuko ditu.

Gure sendia, uts-bakoa izan ez arren, Kristo Salbagilleak bere maitasunez santutu ebana, alkartuko da gau zoragarri onetan. Mai baten inguruan, aita abade antzera eta ama ta anai-arrebak matzondo ta olio landara barriak lez...

* * *

Baiña zenbat etxetan jezar-lekuak utsik; erbestean, espetxean, gaixoetxean, gudaritzan, ta abar, ta abar... Bear bada gorrotoak urrindurikoen bat eta lanik ezak erbesteratukoen bat... Nekez... samintasuna. Edo Jaunaren deiari erantzunez Aitagana joan dan gure biotzaren zatiren bat... Jezar-leku utsa.

Begiratu dagigun Kristo jaio-barria: erbestean, etxe barik, estalki barik, estalpe zar baten, abere artean, Jose ta Mariaren biotz garbiak lagun. Bere berba Jaunkoikoagandikoa entzun dagigun: «Zuek irakaslea eta Jauna esaten daustazue eta ondo esan be. Ni irakasle eta jauna izanik onelan banago askoz egokiago zuek...»


Eta gure Salbagillearen irakatsiak, berbaz nai egitez emonekoak, biotzaren erdian gorde dagiguzen. Gogorapen oneitatik bear bada indarra eta kemena etorriko jakuz, eta gure barruak sendotu ondoren, nok daki? bear bada baita poza be, edo gitxienez, otoiz bero bat eta asmo sendo bat: Salbagilleagaz bat egingo gara eta mundu biurri onetan, beragaz batera salbagille izango gara, anai-artean sartu eta gizartea obetuko dogu.

Eta Jesus'en jaiotza-orduan, gabongaberdian, erriko illunak kanpoan itxaroten dagozen artean, Mai santuaren inguruan alkarturik Kristoren argia artuko dogu eta argi ori zuzi bizi baten antzera gizartera aterako dogu: sendira, errira, erriartera, lantegira, mundu guztira: «zuek argia zaree eta argia argi-mutillaren gaiñean ipiñi bear da...»

Illuna dago
Ez da agiri izarrik
Baiña nik ez dot
argi bearrik.

Zu nire argitzaille
Jesus Maitea
Non billa zu baiño
Argi obarik.

AGUR



Zintzotasun - Argibide - Maitasun

ZEANURI'N OMEN-ALDIA

Nork ez dau maite, batez be bere erritarren artean, Zeanuri'n, Gabirel apaiz jauna, gure Manterola jakitun eta euskaltzalea?

Ain biotz onekoa ta erri-zalea, ta ain adiskide ona!

Ori dala ta, Zeanuri'ko gazte talde batek Gabirel jaunari omen-aldi bat egitea erabagi eban, eta omen-aldi au egin da.

Asiera emoteko, Enbeita'tar Balendin'ek bertso batzuk abestu zituan. Gero alkarmezea abade talde batek eta Gotzain jaunak erriagaz. Erriko ta erbesteko jendetza aundi batek bete eban eleizea. Euskera utsean mezea abestu zan.


Gotzain jaunak egin eban itzaldia euskera garbi ta ederrez: Gabirel, Jaungoikoaren gizon lez eta erriaren gizon lez goratu eban, batez be bere euskaltzaletasuna ta idazlaritza goratu zituan. Gabirel oso samurtuta ikusi neban.

Gero, eskintza aldian, Enbeita'k barriro bertsoetan ekin eban eta gazte bik, artzaiñen eta nekazarien izenean, ogia ta gaztaia eskiña ebezan.

Mezearen amaieran Gabirel'ek berba egin euskun: «Nik ez dot besterik egin neure egin-bearra beteten alegindu baiño, ta neu olakoen zalea izan ez arren omen-aldi onetara etorri zareen guztioi eskerrik asko. Egin dagigun beti aurrera geure bidean, egi, zuzentasun eta maitasun bidean, eta gero, Kristo'k irakatsi euskun lez, esan dagigun, barru-barrutik, onura bako otsein batzuk baiño ez gara».

Beste bertso batzuk abestu ondoren, Puxana, erriko bertsolariak, be bai, eleizpera urten gendun eta an Lemoa'ko talde batek euskal-dantzak egin zituan, gero euskal-abestiak, eta geiago barik amaitu zan omen-aldi au.

AGUR'etik zorionik beroenak Gabirel gure adiskeari!



Manterola'tar Gabirel, *Zeanuri'n jaio zan 1890'gneko Epaillaren 18'an. 1914'gtik Eibar'en ezagutu gendun apaiz, Isasi'n zan Markesko lekaimeen abade, ta an iraun eban gudara arte. Ordukoak dira bere lan ezagutuenak, Eibar'ko aizean ebillan euskal giro indartsu arek gogor eragin eutsan, baita berak be eibartar euskaltzaleeri.*

Ekin, Yakintza, Jaungoiko Zale ta beste aldizkari askotan idatzi eban, or aurkituko dozuz «Mitarga» edo «Gama» edo «Urigoiti» baita «Gabirel» izen ordezkoekin izenpetuak. Aldi orretan baita, berak idatzitako idaztiak argitaldu ebazan: «Goi-Izpiak» (1921); «Santuen Bizitza Laburrak» (Editorial Vasca, 1925), idazti onen zati bat, Oyartzabal'dar Martin'ek idatzi eban; «Ipuintxoak» (1929), eta itzulpen bi, «Jesukristoren Nekaldia» ta «Gabonetako antzerki jaunkoia».

«Obenak kentzen etorri zan eta Yosu (Gaizkatzalle) izena artu eban. Izenik ederrena Yaungoiko Aitak ipiñia izan zalako; egokiena bere izateaz bat dalako; gurgarriena berau entzunda, zeru lur eta gaiztokian belauna makurtzen dabelako; pozgarriena, «Izen au aitatzen dabena gaizkatuko dalako» (Santuen Bizitza Laburra, Urtarrilla 1; ezin izan doguz an datozan «r» ta «l» kakodunak emen jarri izan).

GORBEATARRA

OTZ

ARRO

OTZ negu il-jantzia, ta basoan, ta urian, ta etxean ixilla, geldia ta eriotz! Gizabiotza otz ta lots!

ZEKEN


OTZ adar-abarrak, ta billots, besuts gora arrenka, illunetik bisots! Damostazun eskua, bustia ta zikotz!

LIZUN

OTZ illargi gorria, ta ortzea baltz, izarrak igesi, sorgiñak egaz, akerra eztulka, otsoak sorotz, ta tartaloen ortzak, kosk!

SUMIN

OTZ amaren magala, ta saspi bidar saspi, amaika bular legor, goibel, albetan, ikaraz, estu ta mingotz! Umezurtz!



MIZKIN

OTZ basetxea, ta arrotz, egatz zarretik malkoak izotz, sakapean ezpata zorrotz, sutondoko katua bizi, bizi ta lo, txokoan aitonamonak galen ta otz!

BEKAITZ

OTZ egunak, ta motz, ta illun, ta illunean ostots! Nor astelen ta noiz asteazken? Igandeko ezkillak illots!

ALPER

OTZ Jakob'en erro enbortuak, ta ixu, edo zupil. edo ol, edo endaitz, ala zentoin? Garaille baiña, KURUTZ!

TA ITXAROPEN

OTZ euskaldeak, banaka, ilzapi pean zildun, ta Egubarriz ustetsu: gau luzean ereiñak, or datoz! Udabarri, berbizkunde, YOSU atoz!

BEIZTEGI

EUSKERA

ELE-BITZA, BITSA TA SITSA

Gure garaia pluralismoz nabarmendua da bizitzako arlo guztietan. Egi utsa, begiak zabaldu baiño ez daukagu, ortaz konturatzeko. Gure agintariak ere oartu bide dira orren garrantziaz eta or dabiltz sarritan elebitza gure erritarren artean jarri guraz. Asmo ederra, txalogarria. Beste edozein arazotan bezela, egin-orduan dator ezbaia. Askotan asmoaz bat amua ere ekartzen bai dauskue.

Ez dot uste kontu zarregia danik. Laster etorriko da atzera sasoi ori edo bere antzekoren beste bat, eta gerturik egotea danoi komeni yaku.

Denpora asko ez dala, eleiz-jai entzutetsu bat ospatu da gure eleiz-barrutian. Ormetako iragarkiak-eta elebidun ipiñi euskuezan. «Yo colaboraré y tú?» Ondoan euskerazkoa: «Ni laguntzaille eta zu?» Ondo deritxogu olako ardura ta jardunari. Alan be... Konturatu gara erdera-euskerazko ori euskal-errietan eta uri nagusian baiño ez zala agertu. Beste errietan, erdaldunak azkotaz nagusi diranetan, erdera utsean. Gure euskerarentzako lekurik eta gogorik ez. Eta onegaz ez nator bat eta ez naz pozik.

Gure euskaldun errietan erdeldunak ere ba-dirala ta gaztelarrez ipintzea erabagi dabe. Ederto! Ta erdaldun errietan, Bizkai'koetan, euskaldunak ere badagozala ta zergaitik ez euskerazkorik?

Arrazoiak aspalditik dakiguz. Alaz ere, gogoratu dagigun bat edo beste: oraindiño gure erriari guna ta izerdi guztia (dirua izerdiz ondo koipatuta etorten da) atara nai dautsozuez? Ezetz? Orduan, besteak jaun eta jaube ta gure euskaldunak iñoren morroi bear dabe betiko, edo-ta zuen aitakeri orri beti buru-makurka ta lauxenguz ibilli bear al gaiakoz oraindik? Pluralismo zer da zuentzako: bakoitzak eskubide bardiñak dituala, bardiñean, ala bat bakarrak beste askori protxua atera bear dautsola? Ismo orrek beste aurrizki bat dauka antxiña gure artean.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

JOSKERA

Itaungaia, ots, esaldiaren itzik beiñena ta urtenena, aditza bera izan daiteke. Norbaitek itaun au egingo baleu: Zer egiten dau mutillak etxean? *«Zer» orri dagokion berbea, orixe izango litzateke esaldi orretan garrantzitsuena. Ta mutillak* ikasi *egiten badau, aditz ori dozu itaungai. Euskaldun jator batek, beraz, olan erantzungo leuke:*

Mutillak ikasi *egiten dau etxean.*
edo: Mutillak etxean ikasi *egiten dau.*
edo: Ikasi *egiten dau mutillak etxean.*
Edozein eratara ederto erantzunda.
Itaungaia aditza danean, era bi erabilli daitekez. Biak jator-jatorrak.

1.—*Lenengo era aditz soillari, ots, «verbo sintético» dalakoari dagokio. Aditza laguntzaille barik jokatzen danean, orrexeri deritxo aditz soilla. Esate baterako:* dator, dabil, daroagu, nekarren, bagekar... *ta abar. Olakoetan, aditza bera itaungai bada, aditz ori birritan aitatzen da. Adibidez:*

Aita etorri dator *gaur.*
A ibilli dabil *mendian.*
Nire anaiak ekarri dakar *zaldia.*

Onango esaldietan «Zer egiten dau?» (obeto: «Zer dagi?») itaunari darantzutsoguz.

2.—*Beste batzuetan,* egin *aditza artzen dogu laguntzailetzat. Era onetara:*

Ni etorri egin *naz gaur.*
A ibilli egiten *da beti.*
Arek ekarri egingo *dau zaldia.*

Olakoetan be, «Zer egiten dau» (edo «egin dau» edo «egingo dau») itauna dozu ezkutuan. Bigarren era au bearrezko da aditza laguntzaille barik erabilli ezin bada.

Euskeraren apartekotasun aundien-aundienetako bat orixe dogu. Gure izkunizaren berariz-berarizko zera. Ta olako esakuntza gatzdunak eurrez entzuten doguz errian. Okerrekoak be bai, zoritxarrez, erdera entzun da entzun besterik ez dogu egiten-eta.

Or doakizu esakun-sorta bat Altube jaunaren «Erderismos» deritxan liburu mamintsutik artuta, zure belarria euskaldundu dakizun.

Egon bazagoz, *ez dozu ezer bere egiten.*
Galdu egiten *dogu... geuri be* ostu *egiten deuskue-ta.*
Anditu egiten *jat ibilleran.*
Oraindik artuak erain egingo *dira.*
Emon egin *dautsat Juani eroateko.*
Egon, ibilli, nekatu, gogaitu *ta* aspertu egin *naz.*
Ixilik ezpaago, emon-emon *egingo deuat.*
Apurtu-apurtu egin *dau soiñeko guztia.*

PUXANA

KEZKAK

Euskaera idatziaren batasun-gaia bide, Mitxelena jaunak emaniko itzaldietan, an nintzan ni ere. Eta (bigarren eguna zalakoz nago) apaizgai etxetik irtenaz bat, bi lagun antxe aurkitu nituen, bi adiskide miñ. Bat, ene errikide; auzokoa, bestea. Eta, agur egitean, ara zertsu bota zidaten: «H» z beterik itxuli bearrean aiz...»

Goibeldu nintzan, egi-egiz. Laguna agurtzen asi, eta... desapioz erantzun. Baiña, desapiok baiño miñago, gaiaren muiñak. Galdera auxe sortu zitzaidan enebaitako: «dagun izeneko auek, bene-benetan, euskera-batasuna nai al dute. «Gazte» izenekuok (ots! zenbaitzuek) euskera batua ez baiña beste arlo bat darabilte; eta au garbi eta bortzitz salatu bearra dago. «Ideolojia», beren «ideolojia» Euskalerriari lepora ezarri nai diote. Eta ez besterik (ez bezait errespeturik eska, errespetatzen ez dakienak).

Nerekin mintzo diran «H» zale frankok, batasunerako H artzen ez dutenek, burges edo kapitalista dirala pentsa eta esan oi dute. Egia ote? Zera esango nuke: bide onetatik barrena, iñora ez goazkela, Bidasoz andiko anaiak gureganatu nai ditugula esaten ba dugu ere. Nolaz, izan ere, anai batzuek urreratzeko, beste anai batzuek ankapetu naia? Batzuek maite, besteak gorrota: jokera kaskar bezain faltsoa.

Urtietan, adiñeko adiskideak; Euskalerriko arazoetan, biok iritzi bateko. Euskalerriaren alde oinkada anintz emandako lagunak. Ta gaur? Zer gertatu da? Ene ustez, funts gabeko arrazoiak, bi adiskideok urratu eta urrutiratu gaitute. Mitxelena jaunak, bide sakonagorik asma dezake, euskera eta euskaldunak batu nai bai ditu. Eta asma dezala berari eskatu bear ere; eta bestela, lagun aundi eta azkarrak eskaintzen dizkioten aalmenak zertarako? Arraunlari soil, edo... arraunlari soil izatera irixten ez geranok ere, min dugunean, ai! egiteko ainbat eskubide izango dugula sinista nai dut. Eskaria ordea, begirunez egiten dut, eta ez zer esaten ari naizen ez dakidala.

Teknika utsak edo «decreto» indarrak, ez du euskeraren batasuna lortuko. Euskalerrian, danok nai dugu batasuna; tirriatzen gaude. Baiña, biotzez, ez gaude batuta.

Izkuntza, erriak mugatzeko tresnarik egokiena dugu. Eta euskerak mugatzen eta osatzen gure erria ere. Noski, izateari zor zaio endarena; eta onen gogoari, batasuna, izkuntza batua. Ala dalarik, euskeraren batasunean, izkuntzalari-teknikoek bakarrik ez dute itza ordea. Erritarrok ere ba dugu zerbait esatekorik.

Izkuntza idatziaren batasuna lortu duten beste errietan, izkuntza zer mallatan zuten, eta... erria zer girotan zuten pentsatzea ere, ez litzake gaizki etorko. Gure erriko egoera begiratzean, bakoitzak bere iritziak nolaz agertu?

Bretaiña aundian, adibidez, beren izkuntza erraztu, sinplifikatu naita, gurasoen iritzia entzun eta onartu nai dute. Gure errian, euskeraren batasuna irixteko berdin ari al gera?

Gizon bati ezin utz dezaiokegu euskeraren batzea. Ez ta bazkun edo elkargo bati, jakintsuenak izanda ere. Euskeraren arloa, erri osoari dagokio. Eta erri osoari dagokionez, errialde guztiei, eta euskaltzale guztiei tarte bear zaie eman. Erri-bidea aukeratu bear da. Eta gure elburuak bide onetara zuzentzen ez ba ditugu, burugabekeriaren urratsak, iñork uste baiño laburrago izango dira. Geroak esango.

Euskeraren eta Euskalerriaren batasuna, biak batean egin bearko dira; eta bestelako ametsak egunaren zabaltzeak eramango ditu.

SAGARZAZU'TAR JOSEBA

BIDEZ

Formosa'ko itxasalde oneitara be iritxi da. Bilbo'ko AGUR. Neure poz andirako. Bein geure baso eta ibai ederrak itxi neuk... eta, orain aberriko barriak noz izango beti zai!

Aldizkaria nok bialtzen daustan ez dakit. Erosi, gura bai erosi, baiñan ezin. Izan be mixiolariok zuritxo baten iaube bein be ez gara izaten geu! Gero, emen bertan be eskaleak agertzen iakuz. Motxalle diranik ez neuke esango... baiñan, eskuak luzatzen ederto ikasiak doguz. Ona, ba: biotz oneko bialtzailleari Anboto'ko atxa baiño garaiagoko pillan eskerrak eta eskarrik asko!

Ainbat idazki txairo. Esakera ezti. Bai! Alai egoteko zio asko dodaz. Ta irugarren zenbakian Kamiñazpi azkoitiarrarena (ondarrutarra, ez da?) ikusi dot: berein esakun, zuzenago ta garbiago zelan esan eta erabilli erakusten dausku. Idaz-lantxo orrek zulatu egin nau, ta beste orrenbesteko ekiñean astera noia.

Neure ekiñaldi au, AGUR'en lenbiziko zenbakian ikusi dodanak indartu ta onartuko dau artu. Ona esakun zaarra: «Zelan sartu al izan dok urdaillean orrenbeste janari?» **«Ogien ogiaz eta ardaoen ardaoaz».** Esakun au Azkue Euskaltzaiñak bildu euskun.

Bitartean AGUR'en bertan onako oneik ikusi dodaz:

1.—«Demagoji *bidez* zarataka ekitea errezena». Gooragoko esakunaren eduz, olan egokiago ete-legoke? = Demagojiaren demagojiz zarataka ekitea errezena. Luzetxo dala? Baiñan, idazle euskaldunak beste era batera adierazi eziñik ez leuke.

2.—«Bizi izateko bear dana bearraren bidez eskuratu al izatea». Azkue'k dirauskunetik olan obe ete? = «Bizi izateko bear dana bearraren bearrez eskuratu al izatea». Zati ontan *bear* larregia dogula? Baiñan, *bidez* itza beti be betegarri dogunik ezin uka leike.

3.—«Laster iakingo dabe, aldizkari onen bidez, arteagatarren barri». Olan ete? = laster iakingo dabe, aldizkari au irakurriz, arteagatarren barri.

Gaur iru aletxo oneik bakarrik dakardaz. AGUR'en, baiña, geiago be aurkitu dodaz. Iru orreik neure iritzia adirazteko lain badireala uste dot.

* * *

Gai au ikuitzeaz gogora auxe etorri yat: **Orixe** idazle argi-ugariarena:

«beltzaren bidez asarre zana
aren bidez adiskide».

(Euskaldunak 232'gr. orrialdean 560-561'garren lerroetan)

Orixe'k une ontan idatzi euskuna irakurtzen dodan bakoitzean, barruak irakin egiten daust. Lerrotxo bi orreik ezin irentsi! Ona egia esan: ezin irentsi! Eta, sarri entzun izana gogora etorten iat: onenak be iñoizka lo artzen dabela. Obeto esan, idazle iaioenak be loak artzen dauzala.

Ondoren neuretzat bakar-bakarrik lerro bi orreik olan ipiñi izan dodaz:

«beltzaren beltzez asarre zana
aren eztiz adiskide».

AGUR'en irakurle ikasiek nik baiño politago asmatuko dabe. Gura neuke, beintzat!

Bidez itz onen kezkaz, lenengoz aberria itzuli nintzanean, adiñekoek esaten ete-eben zur ibiltzen nintzan. Ta, bai! Orduan laurogeitaka urteak ebazan bati entzun neuntson. Tamalez'edo, iaun a erderaz ondotxo ekiana zan; bai euskera maite ebana be; ta neugaz euskeraz itz egin bear izaten eban. Euskeraz baiño itz-egiten ez dabenak *bidez* itz au bein be ez dabe esaten. Idatzi, bai... nonbait irakurri izanez *bidez* idazkietan sartzea euskera apaiñagoa dala uste izaten dabe'edo.

Beti uste izan dot *bidez* itz au, betegarri baiño ez dala. Betegarri eta luzagarri. Itz ori artu barik be, euskerak ainbeste eta ainbeste era polit asko ditu gura doguna txairo adirazteko.

ETXEBERRIA'TAR, P. S. I
(Formosati'k)

Pozak eta Kezkak

Ez gara berez teleikuskin zaleak, baiña noizik bein ikusi bearra izaten dogu. Ori jazo zan Azillaren 21'gn, larunbat arratsaldean. «Cesta y puntos» deritxoena ikusten asi giñan; jokolariak, Gazteiz'ko euskotar mutil batzuk (Corazonistas Ikastetxekoak) eta Madrilleko «Nuevos Horizontes» Ikastetxeko ikasleak.

Mai buruak itaun bat bardiña egiten dautse bieri, pizarra baten, Italiatik sartalderantz egiten diran bost romanze'ren izenak jartzeko (latiñean oiñarriturik dagozan izkuntzak). Madrilleko ikasle gazteak onek idatzi ebezan «español», «francés», «portugués». Ez zekiten besterik.

Euskaldunak onela erantzun eben: «castellano», «catalán», «gallego», «provenzal» y «portugués»... eta irabazi.

Badago erantzun oneitan zer ikusi ta zer ikasi; gaztelarrarentzat izkuntz bakarra eurean da, besteak bigarren mallako «dialektoak». Gazteiz'ko mutillak bazekiten katalana ta gallegoa izkuntzak dirala... ez dago geiago esan bearrik.

* * *

Bilbo'ko «Gazeta del Norte»n, Joaquín Goñi izparlariak, Aita Villasante'ri, euskerari buruz, alkar-izketa bat egiten dautso.

Azkenengo itandua au da: Pero, los dialectos no tienen su propia personalidad? Sí, pero aún reconociendo esa personalidad de los diversos dialectos puede hacerse que el cultivo de estos discurra por cauces que conduzcan a una mutua aproximación. Por ahora esto sería la meta a alcanzar.

Erantzun orregaz konforme gagoz. Baña, ori ete da bostgarren euskalki edo «euskeranto» sortu dabenen jokabidea?

* * *

Euskaltzaindiaren izenean larregi itz egiten da. Euskaltzaindiaren iritzia zein dan jakiteko, osoko ta laguntzalle bakoitzari txosten egoki bat bialdu bear yako, itaunketa zeatz bat egin. Guztien erantzunak batu ondoren geientsuen iritzia adierazo ta bai talde txikienarena egizko iritzia zein dan, ta ez orain artekoa. Amasei botok ezin dabe eun eta berrogetamarren pentzakera zapaldu. Ala bai?

* * *

Unibersidadeko ikastaroan irakasle batek, larrialdiak izan ditu. Aditzari buruz itz egiten ebillen eta iñoan «forma au artu dogu besterik ez dalako iñun erabilten». Ikasle batek erantzun eutson «Itxas ertzean beste au erabilten da». Beste andereño batzuk bere bardin zutitu ziran ori bera esanaz... Irakaslea ixilik! Lekuona jaunak, Bilbo'n Euskaltzaindiko batzarrean esan eban lez «ba-daukate batzuk ikasi bearra».

* * *

Lengoari jarraituz ezin doguz gauza batzuk ziñestu. M. Ugalde ta Patxi Altuna'k ikastaro orreik onartzea, adibidez: H'ak, ez ziran ba euskera idatzirako bakarrik? Ba Bizkai aldean naste galanta sortzen asi da izki orrek dakarren soiñua esan eziñik dabiltzenentzat.

* * *

H'ak erdibitu gaitu? Ba kendu ta kito.

* * *

Gabonillaren lenengoan, «24 horas» deritxon programan kirolzaleentzat albiste bat: «Colavidas» jantokian Iribarreri, «Asteleneko Orriaren» ziderrezko oroigarria emon eutsen.

Teleikuskiñekoak itandu eutsoen: Zein da zuk egin dozun «paradarik» onena? - «Murziaren aurkako jokoaldian egin nuena».

—Ta zein izan da sartu dautzuezan goletatik iguin edo amorru aundiena emon eutsuna?

—Madriltarrak 2-1 irabazi euskunean, San Mames'en, sartu eustana.

Jatorra gure zarauztar morroskoa!

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

NEGAR ALA ITO?

—Ogeta iru urte lepoan eta negarrez! Zer dok ori! Osasunaz ta gaztetasunaz, eurea dok geroa!

—Bai, nire geroa neurea da, baña nora joaku erria?

—Ik eureagaz aurrera egik eta...

—Ez, ni neure errian nago, eta erriagaz noa; erriak erritasunetik urteten ba'du, zer jazoko da?

—Zer diñok, mutil!

—Bai, euskaldunaren barrura sartu naz, eta azurra ta azala besterik ez dot aurkitu. Otzitu ta itsutu egin gara.

Euskerea baztartzera goaz. Galtzen ba'dogu, barriz, eztakigu zelango atzerakadea izango dan munduarentzat, eta batez be euskaldunontzat. Euskerea galduta, Euskal-erria nortasun barik iruditzen yat, izate berezia apurtuta.

Ez ete dogu, ba, indarrik, geure izatearen biotza ta abotsa zainteko!

—Ai, txo, ortik etxatok ogirik; bide ortatik ba'oa, laster az kerizpetan!

—O, parkatu, aspertu egin bear zaitut! Itxi nagizu, negar egin dagidan.

—Baiña negar, zer dala-ta?

—Negar egitea ondo yatort. Agur!

Erri-biotzaren amaibako negarra, noizean bein utsitu egin bear da, bestela ito egiten dau.

Gañera, gustiok daroagun arro-puzkeria, apaltasun biurtzeko, negar egin bear dogu.

Benetako negarrak, gure biotzeko gallurkeriak menperatu egiten ditu, eta zer garean agertu: Alde batetik aundikeria eta bestetik aunditasuna.

Aundikeria nagusi dogu munduan, eta onen ondorenak negargarriak dira. Orregaitik negar egiten dot.

Zertarako doguz, ba, aurrerakizunak, gizontasuna urritzeko eta alkar zapaltzeko ba'dira!

Zertarako maitasun itzak, maitekerirako bideak ba'dira!

Zertarako jakituri zabalak, aitu-ezin garratzak ba'dakarrez!

Zertarako buru-auste aundiak, biotza biguntzen ezpadogu!

Negar dagianean agertzen da gizona dan lez.

Aundikeri oneikaz ez da asetzen gizonaren barrua; geiago gura dau. Eta onela, batzuetan uste dogu, lortu dogula zoriona, uskeritxoren bategaz, baiña konturatu orduko, zoritxarra da barriro be menperatzen gaituana.

Alegiñak alegin egin arren, ezin asetu gizonaren egarri agortu-eziña.

Aunditasuna, ostera, norberen izatearen susterreraiño doiana da. Ez sabela ondoondo betetzea, edo masi-gona bat jaztea.

Aunditasunak, sakoneko aberastasuna, erriaganako edo norberaganako maitasun zintzoa, eta betikotasunaren egarria agertzen eta bizkortzen dauskuz.

Onela, illunak argia dakarran lez, negarraren mingotasunak, poztasun baketsua dakarsku.

EGUZKI

EGOERARI BEGIRA

Gaur gazte askoren egoerari begira zerbait esan gura neuke, batez bere gaur euskaldunaren egoerari begiratuaz.

Une ixar baten gagoz danok, batez bere euskaldunak ta oneri dagokionez jazoten dira gauza asko, geienak oso baiezkoak dira, beste batzuk ez. Baiña ikusirik gaztearen egoera arazo batzuen aurrean zerbait egitea beti dala, uste dot, zuzena. Baiña ez da zuzena, mundu guztiari kritikatea egin eta: «orrek ez daroa bide ona» esatea; Geienak, neugandik asita nai badozue esaten dogu: «au egin bear zan edo beste ori egin bear zan».

Baiña, geure jakituri arroa iñoz bere ez azaldu erriaren aurrean, ta ez beti alegindu esaten besteak, egin dabena ez dagola ondo eginda. Esango neuke olangoak beti egiten dabela kritika apurtzalea, ta uste dot eurak ez dirala konturatzen.

Beti begiratsen dautsegu gauzari goitik beera, Benito Lertxundi'k diñoan legez abesti baten. Baiña iñoiz bere ez gara jartzen azaldu gura doguzan arazoak erriaren aurrean eurak dakiten neurrian azaltzen, ez, ori ez; asko be errezagoa da, berba politak erabiltea, iñork ez ulertu arren.

Zergaitik ez jarri langillearen maillan ta ez ikasien arloan kritikak egiteko langilleari. Egin berba bai, baiña jendeak ulertzeko eran. Beti filoxofadatan ibilli barik, ezpabe alperrik da zuen garrasiak egitea. Alegindu gaitezan danak arazo txiker batzuk azalduten, gero sakonagoak egiteko.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER'ek

ZUBIRI - OTAZUA

NARRUZKO OIÑETAKO TA SAKELAK,

Era-barriak gazteentzat,

erosoak jaun-andereentzat.

Pl. Campuzano, 4 **Bilbao, 11**

Gabonak ala gau-otzak?

Buru asko, biotz bat

Egia esateko, idazlan au iru edo lau bidar aldatu dot, aldatu bearra! Gure kondairari buruz egindakoa, ezin argitaratu. Ez iñork galerazo dabelako, giroak eraginda baiño. Gaurkoz beintzat, edestia alde batera utzi arren, aurrera jo baiño len geldi une bat egin bearko dogu; arnasea artzen dogun bitartean, atzera begiratu... baiña kontuz!

Atzera begiratzea ez da atzeratua izatea edo aurrera joateko kemenik ez izatea. Nere ustez, euskaldunok *euskaldun* iraungo badogu beintzat, gure istoriaren irakaskintzak aintzat artu bearko doguz, bideak eta elburuak aukeratu baiño len. Gure edesti ituna!

Egunak joan ta egunak etorri, Gabonak eldu jakuz; Gabonak ala gabonilleko gau otzak?

Eguneroko lana amaitu ondoren, goizaldean asi naiz au idazten; otz naiz, otz eta artega. Gabon gaba, maitasunezko gaua... ta urte guztiko beste gauak, zer? Dana dala, kristau artean, gau gozoa, sendi osoa biltzeko gaba. Zelakoa izango ete-da aurtengo Gabon au? maitasunezkoa? Ez dot uste, gorrotoa ikusten dot nun nai azaltzen; gorrotoa ta gogorkeria. Aragi bizian mindu da gure sendia, oiñazean dago ta oiñaze orrek alkartu gaitu; alkarrenganako maitasunak, iritzi guztien gaiñetik gure biotzak batu ditu. Baiña giro onek ez dau beti iraungo, ta orain jartzen ez badira maitasunezko batasunaren oiñarriak, gero alperrik aleginduko gara. Maitasunak, erri-zaletasunak iritzien gaiñetik bultzatzen gaitu, baiña ekintza edo jazoera orreik, ez doguz atzekoz-aurrera artu bear. Sarritan iritziak aztu bear izaten dira, baiña iritziak alkartzea ez da iritziak bardintzea.

Esanak bete

Gaur munduan, danok dakigunez, jazoten diran ekintza guztietan arpegi bi ikusten dira. Alde batetik, ekintza bera, dan bezelakoa; bestetik, ekintzaillearen asmoa edo elburua. Balitzake lelengoa onartzea, baiña ez bigarrena.

Iritziak eta itzak, gaur, nastaurik dabiltza, edozeiñeri entzungo dautsazu: «ni au naz edo beste au naz...» baiña itzez! Begiratu egiozu bere bizi moduari ta ao zabalik geratuko zara.

Jaungoikoa ,bai?

Gure aldizkari oni bere, orretariko «aurreratu» batzuk zenbat gura etiketa ipini dautsez. Arañegun, mungitar jator batek esan eustanez, beste orreintzat «eskuma konfesionalekoak» ei-gara... barre zantzo galantak egin genduzan. Ba ete-dakie esames-zabaltzaille orreik zer dan «konfesional» izatea? Ba ete-dakie zelakoa dan gure aldizkaria? Guk, jauntxoak, ez dogu gure elburuen artean politikarik sartu. Gure elburu bakarra AGUR'en, euskerea bera da; euskerea, betikoa, indartzea. Euskereak ez dauka ez ezkerrik eta ez eskumarik; ez dago euskera zarrik edo euskera barririk, euskerea betikoa da: Euskaldunen izkuntza bakarra.

Ezkertitza, jostaillu

Beste alde batetik, gure aurka dabiltzanen artean ikusi dogunetik, «sasi-ezkerti» asko dabil, geienak aitakeri edo «paternalismo klerikalaren» azpian bizi diranak. Abade batzuk, eurok be, gazteen eziketan asi baiño len, bakoitza bere buruaren jaube izan bear leuke; obeto ezi ta egi billa alegindu, bestela, gogo onez edo txarrez, guzurrak zabaldu leitekez. Ez dogu ba, «zenbat gera» abestuten? «zer egingo degu, alkar jo? alkar il? ori ez! ori ez!

Ez goaz baiña larregi sakontzen. Gogoak ernai dagoz, artega; edozer esaten da, edozer egin. Itxaron dagigun itxas-ekaitza baretu arte. Egia, beste alde batetik, berez zabalduko da; itsurik dagozan gazte asko, berez konturatuko dira.

Ta zer egin?

Izkuntza inguruko arloan, asko dabiltza arria jaurti ta eskua estaltzen. AGUR'eri egur eta egurrari agur» egiten dautsoe... baiña ez noa berotzen. Giroa arantzak ateratzeko da; gorrotoak baztertu; gizon lez alkar-izketan asi; norberekeriak aztu; bizi bidean ta gizartean «tasun» atzizkia onartu ta «keri» orrein gaiñetik ipini... bestela gureak egin eban!

Betor maitasunezko batasuna Euskalerrira Gabon otz eta artega onetan.

ARENAZA'TAR JOSU

AURTZARO'TIK ZARTZARO'RA

Euzkotar ni jayo nintzan
erritar bai odolez,
ABANDO'n nere bizitza
sortu zan zorionez.
ABANDO, erri maitia!
Atsegintsu erri zan,
baña... au tamalgarria:
BILBO'k «iruntsi» eban.

BIZKAIA'ko baserri'tik
gurasok ABANDO'ra
ezkondu ta gero andik
zentozen bizitzera.
Eurak mintzatu oi eben
euskeraz euren arte,
ba biok erabillen
erderik baño obe.

Nere gurasok, laztanak!
oker ez nai arren,
euskera'ri maitasuna
aldera-egin eben.
Odolez ba oso euzko
ta, euskal jayoterriz,
alere euskera gabe
Auxe zan tamalgarri

Utz-egin gure asabak
maite barik izkerik,
orregaitik aldi txarrak
eldu ziran geroztik.
—Ai, ele zarra geuria
antziñatik jausten!
Au dogu lotsagarria
guk itxiaz naigaben!

Urte asko igaro ta,
bein oldoztu nik neban
euskerik gabe nintzala
ta nitzat mingarri zan.
Ordun, gizon izan arren
ikastolaratu nintzan
nere izkuntza ikasten
ARRUTZA jaunarekin.

Ba ni berrogeita... urteakaz
asi nintzan ikasten
eta larogetalau ni naz
au idazten nagonen.
Olan egingo baleuke
euzko diran guztiak
—ez obe izango leiteke
EUSKALERRIA'rentzat?

ELEZKANO'TAR IMANOL

* * *

Ara emen zar gazte jatorra, 84 urtegaz ba-dau edozein gazteagoak aiña euskal zaletasun, eta idazten asteko kemena be osorik. Iñoiz ez da berandu, ta zu irakurle, ondo-ondo ez egitearen bildur izan barik, asi zaite gure Elezkano zartu ezin onen antzera, eta bota onuntz zureak bere, bear ba'litz izango zenduke gure laguntasuna be. Larogetalau urtedun gazte oni, Zorionak!

KONTU KONTARI

Kili-Kili'ren Esakunak

—Gaurko arlo ta bide guztietan euskera zaindu, zabaldu ta astintzeko jaio zan Kili-Kili. Egin-bear onetan, bera dogu beiñenekoa.

Euskeragaitik arduratzen dan edozeñi, abegi ona dagitsot. Orraitio, umeak dodaz kurrukutunenak.

—Euskaldun geienak euskeraz jakitun ez dira-ta, gaitz au sendatu bearra dogu. Beraz, jarri bei bakotxak bere ardurea ekiñaldi onetan.

—Euskaldunok belarriz baiño ez dakigu euskeraz. Erderaz barriz, irakurten ta idazten ere bai. Oker aundia auxe; egin gaitezan jakintsu geure-geurea dogun izkuntzan.

—Ortarakoxe sortu nintzan: Euskaldunak eskolatzeko; euskera aldezko giroa zuzpertuteko. Besterik ez danean Kili-Kili'k maisu lana egiten dau. Umeak ez dauala ikastolara elduteko eretirik? Neu joaten naiz bere etxera, idazki, idazti ta kuadernoen bitartez. Eta sariketa aundi baten pozean, jolasean, etxetik urten bage ikasten dau euskeraz irakurten ta idazten. Txantxetan-benetan buru-biotzak aberastu.

—Amaren berbetaz doa umeakana. Lenengo bakoitzari berean, gero, guztiena ikasteko: Bizkaitarrei bizkaieraz; nafartarrei nafarreraz ta abar.

—1969-an Kili-Kili'k urteko *Sariketa* iragarri ta bere kartel aundiarekin, ikastolak, eleiz-parrokiak, adiskideak, guztiak agurtu ta ikertu. 1970-an umeak itzal erantzun eben. Lenengo urteko bi millak, lau millan biurtu ziran Bizkaian; emen ezta uririk kilitarrik eztauanik. Ondoren, arrigarriena, nafarroatik etori jatan beste ainbesteko bultzadea. Gipuzkoa, ba-dator.

—Urtarrilletik bagillerarte danentzako duan eta maisu barik irakasten jake irakurten ta idazten. Illero artzen dabez umeak, lanerako gaiak. Kuadernoak, zuzendu ta gero, sarirako puntu ta guzti bialtzen jakez atzera. Pozarren artzen dabez nere eskutitzak eta polito erantzun.

—Euskeraz idaztea gatxa? Bai, zera! Aita Larramendik lenengo egin eban euskal elizliari «Eziña gainduta» izenburua ezarri eutson.

Kili-kili'k be, ortxe azaldu dau, eziña ezeze, gatxa be eztala, euskeraz idaztea.

Aurten, 1.000 umek artu dabe saria.

100-ek, iru eguneko ibillaldi zoragarria.

600-ek, egun batekoa. 300-ek, ipuiñak eta abar artuaz.

Buruausteak ba-ditu Kili-Kili'k aurrera joateko, batez ere diru aldetik.

Ona zenbat eralgi dogun aurten: 420.000 laurleko. Lagundu al dozunaz.

Kili-Kili, Colón de Larreategui kalean, 14'garrenean bizi da.

Agur danoi,

KILI-KILI'K

YOSEBA ADISKIDEA

—Lertuta jaukat biotza, amutil. Kanposanturaiño joan nok Yosebaren gorpuari laguntzen.

Biotz-biguna izan da beti Iñaki Agirre, baiña gaurko moduan ez dot ikusi bein be.

Gazte denborako mutil-laguna il jaku. Lagunik onenetarikoa genduan Yoseba.

Itxaso-zale aundia zan gaztetan. Ondartzara joaten giñan sarri beragaz jaiegunetan; mendira baiño geiagotan.

Bera zan bakarrik erdalduna gure artean. Maixuen semea. Araban jaioa.

Umetatik ikasi eban euskera pixka bat, euskaldun utsak giñan gu-ta. Medikutzarako ikasteak egiten joan zanean egin zan benetako euskaltzale. Soldadutzakoa betetzen zegoala berotu zan asko euskaltzaletasunian.

Liburuetatik eta lagunekin berbetan, gogo onagaz beti eta adoretsu, ekin eta ekin ibilten zan euskeria ikasten. Bear dan moduan ikasi eban azkenean be.

Eskola-gitxiko gelditu giñan gu, erriko mutillok, eta erriko euskeriagaz bakarrik.

Gure erriko euskeria egiten eban gugaz Yoseba'k, baiña probintziako giputxekaz eta naparrakaz be ederto konpontzen zan. Beste aldekoekaz be bai. Gugaz bestean bai beintzat.

Erriko jaiak-eta antolatzen izan zan mutil. Urte askotan izan zan ezpatadantzari gugaz batera eta gure urrengokoekin. Berak ekarten ebazan bertsolariak errira. Orduantxe asi zan idazten be. Ainbat euskal aldizkaritan idatzi eban. Zenbat eta zenbat idatzi ete-dau ordutik aurrera!

Itzaldiak be emoten ebazan erri inguruetan. Erderaz be bai, baiña euskeraz batez be. Arrituta gelditzen ziran danak, erdaldun jaio zan batek ain ederto euskeraz berba egiten ikusita. Alkate batek baiño geiagok eskatu eban bere errirako, medikutzako ikasteak egin ebazanean.

Uriburuko Gaixotegi Nagusian gelditu zan, azkenean be. Eta an emon dauz azkenengo urteak, Alemanian denboraldietan egon eta gero.

An il da, gure uriburuan, uste barik eta gazterik. Gu baiño pare bat urte zan gazteagoa.

—Emen ba egingo jeutxauzak elizkizunak, eta sosegau adi Iñaki. Danok sentidu jouau Yoseba iltia.

—Bai, baiña Gorbeiyakó mendietara nayoak egun batzuetarako. Etorten nazenian egingo juau berba.

Onek dira misterioak! Ain gazterik il bear gure gaztetako Yoseba mutil-laguna. Nork esango eban ori?

ÑAPUR-ZARRA

OARRA

Datorran Urtarrillako AGUR'en 9'garren zenbakia, 115 pezetaren reembolsoz bialduko dantsegu lenengo urtekoa ordaindu ez dabeneri, arpidetze ta reembolsoarena osotzen.

Eskerrik asko.

EGAZKIN GAIAK

Kepa ipuilari azkarra izan beti. Ta egazkiñetako berri iakin-naiean zebillen. Bein txori orien zelaira ioan zan. Galde eta galde. Erantzuteko zegon andereñoa ia aspertu zan. Kepa'k.

—Ez zaitez orrela asi! Aizu! Emendik Paris'era aldi luzea bear izaten al da? Ta, andereñoa esan eta esan. Kepa'k barriro.

—Ta! Paris'tik onera zenbaitzu ordu bearko lirake?

—Emendi araa añaxe!

—Bai ote?

—Noski!

—Beti ez da orrela izaten!

—Arritzekoa!

—Arrikizunik ez da emen. Entzun: Eguarritatik Urteberritara aldi luzea izaten al da?

—Zortzi egunekoa.

—Ta, Urteberritatik Eguarritara, zenbatekoa?

—Orra ba! Itzak kidekoak eta gaiak bestelakoak.

—Orduan! Paris'tik onerako tartea bestelakotu egiten?

—Ipuilariek beti nagusi irteten!

—Zerok ere, andereñoek garaille irtetea maite dezute!

—Al degunean!

ETXEBERRIA'TAR, P. S. I.

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiña'de'tik

Aspalditik gurean beste asto bat bear izaten genduan. Oraingoa zaarregia bait-zan errirako bidetik barazkiz beteriko burdia eroateko, ta etxerakoan utsik ba-etorren bere, aldatzetan arnasestuka asten zan ia aurrerago yoan eziñik.

Orain aste batzuk etxekojaunari entzun neutson, ainbeste lan egin ondoren bidezkoa zala gure asto zaarrak zartzaro nasai bat izan egian, eta orretarako ordezkari bat etxera ekarri bearko gendukela.

Atxandi'n gure erri-buruan, illero entzute aundiko azoka izaten zanez, urrengo illeko azokara joaten erabagi zan.

Aurregunean Yontxu gureak aitari asi yakon azokara eroateko ta eroateko eskatzen. Aitak ez eban ain ume txikia eroan gura, baiñan amaren eta batez ere amamaren eskariek etxekojaunaren biotza bigundu eben, esaten eutsoela ume gixajoak beti etxean irauela ta mundu apur bat ikusteko garaia zala.

Urrengo egunean goizean goizik yagi ziran, Yontxu'k pozaren pozez tutik atara barik amamak aurpegia bein eta barriz garbitzen eutsola (au bai arrigarria!), ta gosari arin bat arturik, ait-semea errirantz abiatu ziran etxekoandreak eta amamak ataditik egiten eutseezan agurreri erantzuten ebezala.

Benetako egun ederra zan. Lizarmendi'tik eguzkia gorantz joian eta goizeko gardentasunak kutsututa, txori baizen alaia Yontxu'k aitaren eskuari eutsita amaika itaune egiten eutsozan gai batetik beste batera etengabe ekiten ebala.

Errira eldu ala eleizako enparantzara zuzendu ziran eta emendik Atxandi'ko azokara aita-seme eroan bear ebazan kamioiaren begira geratu ziran. Neri, bidezabaletik edatzen ziran zortzi kilometroak atsegin ez yatazanez, aita-semea enparantzan itxi ta baso-larrean zear Atxandi'rantz jo neban.

Azoka, zugaitzez apaindutako ibai-ondoko zelai batean izaten zan. Toki atsegin ontatik edertasun-zale ikusleak gure araneko txoko eder bat ikusi egikean, eta zugaitzen pean sortzen zan bedar goxoak eta ibaiaren eresi bigunak lillura bereizi bat emoten eutsoen. Iru eskudel luzeak alde batetik besteraiño edatzen ziran. Leengo bietan abelgorria lotu oi zan, eta irugarrenean, ots, ibai ertzera begiratzen ebanean, astotaldea.

Etxekojauna ta Yontxu gurea oraindik eldu ez ziranez, iraduz barik zugaitzen adarrik adar nioala, asto-errenkada mutur betetik besteraiño arakatzen asi nintzan. Olan aztertu neban errenkada osoa ezer bereizirik ikusi gabe, ta ia aspertuta beste gai barri bat billatzeko zorian nintzala, ara nun eskudelako azkenengo lekuan lotuta, bostpasei egun ozto-ozta izango situan astakume ñimiño bat ikusi neban...

Gaixoa...! Jaio barria eritxan abereiñoa ikusi ala, erruki esangaitz batek uztarpetuta iri ninduan. An egoan laztana igitzeke, danok aazturiko arrabete gitxi batzuk nekez bedar-gaiñean neurtuko ebazan gaixoak. Ba-eritxan berarentzat dana bardin zitzaiola. Utsean galdurik begi illunek iñolako naigabea erakusten eben eta bere gelditasunean etsipena bezelako nabar zan zerbaitek, neure biotza estutu eustan, eta ustekabez, igarri barik, astotxu gaixo arekin maitasun bizi bat sortu yatan. Ez dot iñoiz astorik negarrez ikusi malko-yario dagokion aldetik baiñan naigabe aundi baten pean diranean, ixillik eta geldi-geldi barrutik negar dagie, ta orduan begietan oiñaze neurrigabeko itxura uts ori agertzen yake. Astakume ua ikusi baizen laster, bereala oartu nintzan naigabe aundi batek atzitua eukala...

Ba-zan aberetxu arengan arritu ninduan bereizitasun batek: belarri bat zutunik yagiten yakon eta bestea barriz, lur jota bezela bizigabe burutik beera eskegita lez etorkion. Astotxu begiratzen ari nintzalarik, oartu nintzan ijito gazte batek zaintzen ebala. Ijitoa aspertuta ertxan eta eskuak praketako sakeletan sarturik, txistuari emoten eutson. Nabari zan ez ebala iñoiz sabela bete izan aal, eta an egon baiño, lapiko baten aurrean askoz atsegiñagoa izan litzakiola. Alako batean, beste ijito zaarrago bat urreratu yakon.

—Zertan zabiltz mutil astotxu orrekin?

—Emen ba... ia pizti au saltzen ba'daikegun.

—Astama barik? Bai zera...!

—Ez dago beste biderik. Astama atzo goizean il yakun eta aitak astakumea azokara ekarten erabagi dau.

—Nekez salduko dozue au.

—Obeto —erantzun eutson ijito gazteak irri-par gaizto batekin.

—Obeto?

—Bai, pizti au saltzen ez ba'dot, gabean benetako aparia egingo dogu. Ama apartekoa da asto gazte bat janaririk gozoena biurtzeko, eta ijito gaztearen begiak argitu yakozan, miiagaz ezpanak milikatzen ebazala.

Ezin neikean ijito aien alkarrizketa luzaroago jasan eta nazkatuta, ia oka egiteko zorian toki artatik aldendu nintzan, etxekojauna ta Yontxu gurea zugaitzen artean billatzen nebazala. Laister errenkadako erdirantz begiztatu nituan. Agiñalde'ko etxekojaunak une artan un bi inguruko asto sendo baten ondoan egoan, begiak, agiñak, ankak eta bizkarra aztertzen eutsozala. Bere aboan eratzen zan kiñuagaitik argi nenkusan, astoa bere atsegiñekoa zala. Gero saltzailleari salneurria eskatu ta ardurabako baten itxuraz Yontxu esku batetik oratuta eroiala astiro-astiro aurrera jo eban asterketa jarraitzeko. Ez-arian ez-arian, eskudelako beste mutrrera eldu ziran, eta atzera egiteko zorian zirala, Yontxu'ren begi ernaiek amabako astotxu ikusi eben, eta... orduantxe ene biotzean itxaropen zoro bat sortu yatan.

Astakumea ikusi ala, Yontxu arengana oldartu zan eta idunetik besarkatzen ebala, bere aurpegiñoa astotxuaren bekoki-gaiñean ezarri eban, aitari oiuka iñoala:

—Begira aitatxu asto polit au!

—Bai... gaixoa!

—Aitatxu, koittedua bakarrik dago...! Zergaitik ete...?

Eta astakumea laztantzen ari zala, alako batean onek burutxua jaso ta musturraz txeri bezelakoa zan igortzi bat egin eutson, eta... orduan bertan Yontxu'ren biotza astotxuarekin betiko lotuta gertatu zan. Une artan astakumearen begi baltzaranak ikusi nebazan; aiengo itxaropenezko diz-dir barri bat ikusten zan, eta bere sointxu argala bizitz pizgarri batez sutu eritxan.

—Aitatxu, astakume au gura dot. Begira...! ba-dirudi ezagutzen nauela...! eroagun etxera aitatxu...!

Orduan etxekojaunak esan eutson eziñezkoa zala amabako aberetxua azi, ta gaiñera asaundi baten billa etorriak zirala etxekoa ordeztuteko. Baiñan Yontxu gureak ez eban aitari esana entzun nai, ta beso bat astakumearen bizkar-gaiñean ezarrita, igitu barik an iraun. Azkenean aitak esku batetik oratu ta umeak malkoak mara-mara eriozala, ia narrazka ere eban. Astotxu gaixoagandik urruntzen ziranean, oartu nintzan barriz bere leengo igigetara eta etsipenean murgilduta eritxala, ta gaixoaren itxura unkigarria ikustean, neure kemen naigabeko oxin baltzean itzali yatan.

(Jarraitzeko) AGIÑALDE'KO TXEPETXA

JAZKERA BARRI ETA GALTZETORRATZEKOAK

Guerricabeitia

Artecalle, 32 ◆ BILBAO-5 ◆ Urrut. 21 65 67

EUSKAL-ERRITIK MUNDURA BEGIRA

Larogei urtetik gorako kardenalak ez dabe Aita Santua aukeratzeko eskubidarik izango.

Au be Eleizea barriztatzeko bide bat da. Baiña, 80 urte ez dira gitxi. Baiñoe, baita, Aita Santuak berak be urte orreitara eltzerakoan Aitasantutzea itzi egingo ete dauan.

Ottaviani kardenala, Aita Santuaren aurka jarri ei-da, larogei urtetik gorako kardenalentzaz artu daben erabaki orregaitik.

* * *

Ikasleen aztertzeak, esamiñak, kendu egiten ei-dira. Amaitu dira ba ordu larri asko ta «suspensoak».

Zer baiña ordez?; «Evaluación continua» ekiñaletako egokitasuna, diñoe. Aztertze baten ordez asko ez ete dira izango? Ta, jakiña, «suspenso» baten lekuan, asko?

* * *

Bilbo'ko S.Juan parrokiaren berreungarren urtea ospatuko ei-dogu. Berreun urte oneitan izan ete da, azkenengo urte gitxi oneitan dan eguneratzeko gogorik? Ez dot uste. Baikorrak izan gaitezan, gaurko giroa obea da-ta.

Parroki onek bete dau Euskalerriko parroki lez izan dauan eginbearra? Azterketa sakon bat ondo litzake.

* * *

Markiña'ko auzo batera bide barria egin dabe baserritarrak. Eurak lan egin eta gaiñetik milloe bi emon dabez. Jarraibide bat besde auzotegi batzuentzat.

Baiña onelako gogoa dauken gizonai laguntza apur bat emotea be ondo litzake, eurak be zerga txikiak ez babez ordaintzen-eta.

* * *

Instituto de Ciencias alkarteak irakasleai frantzerea irakasteko ikastaro bat eratu dau. Alkarte onek eziketa-lege barriak ardura aundiz begiratzen ditu.

Lege barriak euskerea be aitatuten dau. Ez ete dira eratuko gure izkuntza irakasteko ikastaroren batzuk?

* * *

Paul VI'ak ordu bat eta barrogei minuto egin ditu FAO'n eta egitura onen 25'garren urteurrenean berbaldi bat egin dau 121 laterriko ordezkarien aurrean. Egitura onen zeregiña baserri-arazoak eta janarienak konturatzea da.

Ogiak eta arraiñak ugaritzea adiazoten dauan margazki bat emon dautse. Ederra irudia! Baiña nork egin bear dau alatz ori gaur? Ez ete dira baserritarrak eurak laguntzarik balebe? «Guk ezin doguna Jaunak egingo dau» esan dau Aita Santuak.

Paul VI'ak aitatu ditun gaiak onexek izan dira: 1. Aita-Santuak eta FAO; 2. Gizonak ugaritzearen arazoa munduan; 3. Laterri arteko batasunaren bearra; 4. Teknika - aurrerapidearen arazoak; 5. Kendu bearreko gaizpideak: Izkillutzeariñeketa. Diru eralgite bidegabea...; 6. Ludi guztirako agintaritza baten bearra; 7. Ludirako lege eginkorren bearra.

* * *

Hunosa'n beste minero bat il da. Lanean ilten jakuzan anaiak benetan martir lez artu bear doguz: orrexek benetan «besteen alde bere bizia emoten dau» a bete dabe. Baiña, baita, martir oneik gitxi, al dala iñor ez daiten izan alegin sendoak egin bear doguz.

* * *

Chrysler España'ko 1200 langillek aurrerantzean ez dabe lanik izango. Urtero galtze aundiak ei-daukoz lantegi onek.

* * *

Urtea amaitu baiño len errietako agintaritzari buruz lege barriak urtengo ei-dau, eta legeak betetako egiten dira.

Erriak eurren alkateak eta udaletxeko maikoak aukeratzerik izango ete dabe?

* * *

Servan-Schreiber entzutetsuak, datozan uri-auteskudeetarako, bere erradikal alderkiak aukeratu ditun egitarauen oiñarri auxe egertu dau: «Paris'tik igaro barik, uriak, errialdeetan alkartuta, Europa'ra zuzen».

Amerikar inditarrak pozarren dagoz, gurenda garrantzidun bat lortu ei-dabe senat-batzordetik: 1906'an kenduriko lurrak itzuliak izan jakoez. Mexiko-barri'an bizi dan «Taos» inditar erria, bereak izan ziran lurren ta zingira urdin doatsuaren jabe egin da barriz. Sinbolo-iduri jarraigarri lez amerikar inditar guztientzat. Gure Aritz'aren antzera, lurbiran aratonat gabiltzanontzat.

* * *

Olaeta'tarren balleta Ipar-Amerika'n zear dabil. Beti bezela egunero txalotua izaten da. Euskal-folklorearen erakusterik onenak dira dudarik gabe. Euskal izatea era askotara goraldu daike, ta Bitor, gure adizkidearen taldekoak orretan alegintzen dira. Zorionak!

* * *

Aita Santuak Pilipiñetara eta Australia'ra ostera bat egin dau. Manila'ko egazkin-geltokian ego-amerikar batek il egin gura izan dau. Orretarako aizto zorrotz bat eukan iltzailleak eskuetan.

Zenbat eratako gizonak munduan! Iltzaillea eroa dala dirudi. Azillean izan da Kennedy il ebenaren urteurrena. Kennedy'ren iltzailleak ez ziran eroak izan, gogor zaleak baiño. Demokraziaren etsaiak.

* * *

Alexander Soljenitsin ez ei-da, Nobel saria artzera, Suecia'ra joango. Bildurra ta bildurra... Ai, ezker ta eskumako gogorzaleen azkatasuna!

* * *

Gogorkeriari buruz «Ecclesia»k idatzi dau: Nor ez dago gogorkeriaren aurka? baiña gogorkeri guztien aurka gero...

* * *

Barcelona'ko lege-gizonak eriotza zigorra kentzeko eskatu dabe. Aspaldion eskabide au zabalduaz doa eta lortzen bada, Jaunaren agindua obeto ulertuko dogu: «Ez dozu iñor ilgo».

* * *

Quebec'en James Cross, ango abertzale talde batek atzipetuta eukan ingelesa azkatua izan da. Canada'ko gobernuak, emondako itzari eutziz, atzipelariai Cuba'ra joaten itxi dautse. Orain diñoenez, Laporte ministroa ez ei-eben il nai izan. Iges egitean bere samatik jarrita eukan kateagaz ito ei-zan. Egia ete?

* * *

«Manson sendia» famatua da Iparameriketan. Erailtzaille uste diran orrein auzia luzea da. Laterri orretan epaitzen diran gizon eta emakumeari eskubide osoak eskeintzen dautseez. Baiaña a, Ipar-ameriketa da.

* * *

Ibaizabal erreka inguruko lantegiak uretara botatzen dabezan sastarrak errreka osoa pozoitu dabe. Ez dago, ez arraiñik ez ladararik, ez bizi izateko girorik.

* * *

Pedro Cantero Cuadrado, Zaragoza'ko goi-gotzaiñak, langilleen eskubide baten alde itz egin dau. Goterki orretako lanikastola baten langilleentzat berbaldi batzuk eratuak izan dira. Berbaldi oneitarako gaia langilleen jakintza zan. Olagizonak al ebezan eragospen guztiak ipiñi ebezan. Gotzaiñak diñonez, langilleak larregian zurtu eta euren eskubideak agertu ez dagiezan: «dagilleen nortasunari irain bat egin jako».

* * *

Grecia'n ogetabost lege-gizon, juez, baztartu dabez. An gogorzaleak dira «egiaren» jaun ta jabe.

* * *

ONU'k, Ginea'ko arazoan Portugal egiten dau errudun, ta eskatu dautsa bere erbeste-lurraldeeri azkasuna emoteko, eskatu ta agindu. Itxurak bakarrik ez ba'dira, gauza ederra benetan gure egunetan sortu dan azkatasun giroa.

* * *

Kruschev'ek bere «Gomutamenak» berak barik beste batzuk ateratakoak dirala diño. Egia ete da? Diktaduradun errietan egia ala guzurra zein dan argitzea ez da erreza izaten.

EZTA EUSKELDUNA EUSKERAZ EZTAKIANA...

Ez gara euskaltzaleon arteko akatzak astinduten zaliak, zuzenduten aleginduten garenak baiño, eta orretariko asmoaz gatoz gaur be idazlantxu onekin; okerra zuzenduten.

Aspaldi, geiegi ikusten dogu euskel aldizkarietan, zintzotasun onakin ba-dabilitz be, pizkat naspilduta dabiltzala euskel idazle batzuk, euskotarrei buruz zerbait idatzi bear dabenian, euskoa edo euskotarra esan bearrian «euskelduna» idazten dabelako euskeraz eztakiten euskogizakia izan aipatu bear dabena.

Gure ustez, ezdogu iñoz-be izen biok euskotarra, euskoa, ta euskelduna nastu bear nai-ta bat izan bear leuken, bardingeak, gauza bat ez diralako izaeraz. Euzkalduna edo euskalduna itzak argi dirausku zer esan nai daben; Euskera-duna, euskeraz itz egiten dabena, nai-ta ez eusko odolekua ez Euskalerrian jaio bakua izan. Euskotarra barriz, Euzkalerrian jaioa edo ez, eusko abendako guztiak dira, gure Irakasliak argi ta garbi erakutsi leuskun legez. Guk esau gintzakena, baiña, elitzake biardan baizen sakona izango jakitunagoren zerbait barik; ara Estella'tar Benarño Aitak «Euzko Edezti» (Historia Vasca)'an 30'gn. orrialdean zer dirauskun: (berak dirausku eran berian barri-idatzite).

«—El nombre que los mismos vascos se impusieron es el de «euskeldun», que significa el que posee euskera».

Badin antzera dirausku B.Estornes Lasa'k «Orígenes de los Vascos» en IV atalan 101'gn. orrialdean, Kanpion'dar Artur jakintsuagandik artuta; «El nombre que a nosotros mismos nos damos los Baskos es el de «Euskaldunak». Proviene de «Euskara», nombre de nuestro idioma, literalmente, «manera, modo del Eusk(o). «Euskaldunak» equivale a «los que tienen o poseen euskara (baskuenze)» ta abar. Beraz argi ikusten da, Egia da, euskaldunik geienak, jakiña, euskotarrak garala, baña, ba-dira ez euskotarrak ez Euskelerrian jaio diran euskaldunak, eta, euren artian baita euskeltzale zintzuak diranak-be. Eta beste aldetik, eusko asko, tamalez larregi, euskaldun eztiranak eta izen ori eusko izena merezi eztabenak, erdeldun utsak, gazteleraz edo pantzeraz baño eztakitenak, eta euskera ikasten alegindu-be eztiralako.

Gaztetxua, amabost urtedun nintzala Neguri (Getxo)'ko saleroste apain baten egin neban udaldi bat zerbait ikasten. Saleroste artan danok gintzazan euskotarrak, bat izan ezik, euskaldunak. Egun baten, sartu zan salerostean ondo jantzitako gizon baltz —baltza bat eta, bera ikusiaz batera esan eustan Arrasate (Mondragon)'eko neskatil alai mardua zan Kristiñek «Aiza Josu, ze gizon baltza» (euskeraz jakiña). Gizon baltz arek baña, entzumen zolia euken-da, euskera garbi txukunian erantzun leuskun «bai baltza naz, baña euskalduna», ta alantxe zan, egia zan, euskalduna zan arrasetarrak eta nik baño euskera txukunagoa ekian kubatar arek; markiñatarra edo tolosarra baizen ona edo obiagoa.

A gizon baltza, ez zan euskotarra, jakiña, ez Euskalerria'n jaioa be, gitxiago eusko endakua, kubatarra zan, baña, bai euskelduna euskeraz jakin ebalako ta erabilten ebalako.

Bai-ta euskalduna da, ta zintzua izan-be, euskel aldizkarietan sarritan euskeraz idatzi daben Tauer Praga'ko txekoeslobakotarra. Euskaldunak dira baita nire auzokide Varala galiaziarra, gizon ona bera; Tutor soriarra, Alvarez, Diaz ta abar gaztelarrak, orain irurogei edo geiago Bizkai'ra etorrita euskeraz ederki ikasi ebelako ete beste edozein euskaldun legez egiten dabelako euskotarrak izan ez-arren, ez berton jaioak izan ez-arrik-be. Ostera, berton jaiotako asko Barrenetxea, Etxebarria eta abar naita eusko odolekuak izan «erdeldunak» dira eztakitelako euren endaren izkuntza, Euskera.

Beraz, esan dogunez, gauza bat da euskoa edo euskotarra, eusko endakua izatia ta, beste bat Euzkalduna edo euskalduna, aintzakotzat euki bear gendukena idazkeran da itz egikeran. «Vasco» es voz latina, indudable metátesis de correspondiente indígena euzko (eusko, ausko, ausko, vasko o vasco) diñausku Lekuona'tar M.'ek «Literatura oral euskérica» Zabalkundea sortan 17'gan. zenbakian 11'gn.orrian. Uste dogu naiko argi dagola non zer erabilliteko, geure EUSKERA bardingabian ongarrirako.

ALTUNA'TAR JOSU

Gaztetxoen Txokoa

Zaldibar'tik

Zaldibar'ko Kili-Kili'tarrak zure biotz saminduaren poz eragille izan gura dogu une garrats onetan.

Guk be lagunik onenetariko bat galdu dogu, D. Gotzon, Goian Bego, Kili-Kili'tar laguntzalle zintzoa zan.

Bai ba, Kristoren antzera ume zala.

Gure otoitzetan gogoan izango dogu. Artu gure maite agerpena, Zaldibar'ko Kili-Kili'tar guztien izenean.

Gastelurrutia'tar M.ª Asun

Dima'tik

Kili-Kili'ko lagun guztiok:

Pena aundia daukot gure lagun aundi bat joan yakulako.—Ori izan da gure gizon zintzo GOTZON.

Pena aundia da gure lagun GOTZON'eri Jaunak ain arin geitu egin bear izatea!!!

An' gure aitita eta amama'kaz etxongo dausku geuri gero egun baten danok bat eginda Kili-Kili'ren eskursiño ta gora berak kontetako. G. B.

Besarkada aundi bategaz Agur egiten dautzuet danori.

Xabier'ek

ZUBIRI

Gerri-loturak,

Azpi-jantziak,

Soinkera liraiñak.

Ercilla, 30 **Bilbao, 11**

EGIAK ARGITUKO DITU

Neguko itxas astindu bat datorki burura, gaurko euskal arloa gogoraturik. Ainbat urte dira gaurko ekaitzari asiera emoten asi zira-netik. Ze asmobide erabillen euren barruan, ez dakit. On egitea, noski. Ori da borondate oneko gizon guztien berezko ogasuna.

Jokabide ori azkenengo urteotan, poliki-poliki, indartzen joian. Asko ta asko era orretan nora ete giñoazan galdezka ebilt za zan. Asko bildurtuta egozan. Ta ostera, beste tegi bat, oso pozik, geure euskal berbeta ta izakera, bide barriak artuta, ausarditsu ta dotore, aurrera joiala-ta.

Gu bere bide ertzean gengozan, erriko semien jokabideari begira. Lengo jokabide zarrak ta oraingo barriak, euren eusgarri, euskal erri berbera euken. Erria ordu batetik bestera ta urte batetik bestera, ain arin aldatzen ez dan lez, jokabide orrek be ezin izan dau berealakoan iruntsi.

Jokera onek, orain dala urte pillo batetik onantz erri batek erabillan jokerea dakarkit burura. Erri aundi ori, demokrazi izen ederra artu miñean, ta inguruko erriak menperatzen, gogorki ta ausarditsu, ebillan. Indartsua zan-ta, gauza aundiak lortzen zituan.

Jende jakitun eta indartsuak zorabiatuta izteko, trebetasun itzela eukela zirudian. Edozein tokitan alkartu, ta birloratuta izten zituan naziño aurreratu ta indartsuenetako gizonak. Iñor etxakon aurrean bein, jarten. Ta pozik joian aurrera. Gaur emen ta biar or, aginkada ederrak egin ta erri gizajoak euren nortasuna galduta geratzen ziran.

Bein baten, izontzi taldea, tiburoi-marrazo aldra baten antzera, itxasoratu eban, itxaso ta lurrari burruka aupada egiñaz. Baiña ordu bat eltzen da ta gizonak zutundu egiten dira edozein tokitan. Naiko da, erantzun eutsen sasoirik oneneko gizon adoretsu Kenedi'k. Jarraitu bideari nai ba-dozue, ta emen, aurkituko gara.

Dardar eragin eutsen izontziko burdiñe ta gizon azurrei. Belarriak makurtu, aurpegia illundu, lepoa beste aldera biurtu ta etxerako bidea, poliki-poliki, artu eben Ez dakit bildurtu ala lotsatu egin ziran... Arrezkero, bere lekuan askoz be ixiltsuago bizi da. Bai, ori bai, ainbat eginda gero.

Geure euskal arloan olakoren bat jazo ete da? Zarata ugari ta indartsuak entzuten izan doguz azken urteetako aldi onetan. Gazteak dirala, bizia darioela irakitan, ta ikusten ebenaz gogaiturik egozan.

Gaztetasuna ta bizia alkartuta bitxi ederrak dira. ta bearra egin bear da al dan guztia, orrek biok dagozan bitartean. Au berezko legea da. Ta guztiok zor dautsagu bakotxaren otseintza geure erriari.

Zertzuk entzun doguz aurretikoen aurka... Ta ze ardura ibili da Jainko izena gizartetik kendu bear dala-ta. Siñisten ez dauanak, orren aurka ez bei jokatu, ori zorakeria da-ta. Bai bestiei lotsa izan ta bakean itzi, guztiok bata-besteai zor dautseguzanak dira-ta.

Ta-nkera ontan gengozalarik, «AGUR» ek urten eban bidera. Irriparrez artu ebenak egon ziran. Baiña ori dala-ta, bere jaiotza ondoren, atzerarik ez dau egin. Janaria nork emon eta nork artu bere ba-dauke gaurko euskal-errian. Ta zelako idazleak...! Erritarrak eta mamintsuak. Egi-zaleak... Gaurko biztzari erantzun bear dautsoenak.

Gazteak esan eusten: Auxe da geure berbetea!

Emon da zabaldu egizu egia egialde guztietara.

Ta onaiño eldukeran, bildur otsak asmetan dira batean bestean. Nora goaz... Zer jazo bear dau... Ez urratu jantzirik. Erriak aukeratuko dau bidea.

Ordua eldu zan. Egiz, ontasunez ta kemenez jantzi, ta zuk, «AGUR» egitik sortzen dan maitasun bizia, zeure erriari emon bear dautsazu.

Au euskal-erriari zor dautsazun egin-bear bat da. Au egin ezik, gaiztetsi egingo ziñukez zeure erriak.

Urtien buruan, bake ta gudetan, bear eta egon aldietan era guztietako jendeak sortuta egoan euskal-giroa geure azkenengo arnas onegaz bat eginda, orixe emon bear deutsezu «AGUR» orrek zeure inguruko seme-alaba guztiei.

Erri bizia zabaldu, ausarditsu, ta egiak berak argituko ditu bazter guztiak.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

FOLKLOREAREN LENGORATZEA

Folklorea edo gure tradizio eta oituren pusketa orrek gora-beera aundiak izan ditu betidanik. Iztueta kondairagilleak esaten digunez bere garaierako il-zorian zegoan, ta berari tokatu zitzaion berpiztea eta xuxpertzea. Berak eman bai zion indar gure Gipuzko onetan, bere doñu, oinkadak eta beste zenbait xeetasun idatzirik utziaz.

Bizkaian ere, Berriz eta beste lau-bost bat erritxoetan ere irauten zuten azkeneko arnas-kurrunkak ematen.

Gerora, Abandotik asita euskal gazteen bultzadaz, iñoiz ezagutu ez zuan osasunez ikusi zuan bere burua folkloreak. Gaztea indarra da, sua, kemena eta ari izan bearra. Gaztea biotza da, biotz uts, bere borondate ona alperrikatzen du sarri zentzuz baiño biotzez aundiagoa azalduaz. Gazteak, zerbait obeagoa arkitu naiaz, maiz, aldatzen ba-daki uste onenaz baiñan ondore txarrak eskuratuaz.

Gizaldi ontan bizi geranok, nekez aaztuko ditugu Deba erri zoragarrian bizitu izan genituan egun paregabe aiek.

Gizaki, abere edo gauz bakoitzak bere baitan darama eriotzara eraman lezakean gaitzaren zomorrotxoa. Erri ontan egin izan zan azkeneko euskal jaiean entzun bai-nuan, lenengoz, folklorea folklorekeria biurtzen ari zitzaigula. Gazte mordoxka bat arriturik entzuten egon bai-gintzaion arestian abortoari buruz liburu bat eman digun beste gazte bateri. Folklorea, esan zigun, eta euskera bera ere iltzen utzi bear genukeala, eta lur azpian laga, gero bertatik loreak bezela euskal erri berri akatsik gabea sortu zedin.

Folklorearen aurkako kanpaña, folklorekeriaren aitzakiaz asia zan ta gazte askok bere lumak nekatu zituzten bere usteak, idea oiek, ustez ezin bestez obeak, euskal izparringietan azaltzeko, azaldu ziran bezela. Bide batez, folkloreak ere, «erriaren opioa» ba-litzakean, boikot askoren erasoaldia jasan bear izan zuan, sarri folklorea nork eratzen zuan begiratzen ba-zitzaion ere.

Ontaz, ongi gogoratzen naiz, eta adibidez diot, oraintsu iru-bat urte Zaldibin euskal jai batzuek eratzean, aurretik folklorekeriaren aurka zenbait gauz esan zigutenak jaietan naiko folklore eman ziguten, onak eman gañera. Orduantxe pentsatu nuan zenbait gazteek ariñegi dabiltzkiela biotzak oiñetarako erabilliaz, baiñan jabetu nintzan asmoz zuzen zebiltzala. Eta nere baitan bai sortu ere alako itxaropen bat, gazteak berak, «opioaren» etsaiak ber-berak izango zirala, berez aldaturik, egunen batez folklorekeria ostera folklore batean, lengo folklorean biurtuko zigutenak.

Diotan guztiaren eragille Donostian izan dan Euskal Astea izan dut. C. A. T. ek ongi eratutako astea. Nik pozez irakurri ditut egunerokotan izparringiak esan diskigutenak, ber-bertatik garbi azaldu baizaigu gazte askoren eta illegabe askoren aldaketa folklore gai ontaz.


Folklorerekeriaren aurkako kanpaña eragin zuten ber-berak, lagundu zutenak ere, folklore jaiok nork eratu dituan begiratu gabe (orrela bear litzake gañera), izandu dira konferenziante bakarrak. Gero, ori gutxi ba-litz, euskaldun jator batzuei dagokien bezela, ain folklore jator diran txalapartan, irrintzilarietan ta abarretan berak izan dira epaikari edo jurado. Txaloak zuei!

Nik, jokabidearen aldatze ori atsegiñez ikusten dut, eta euskaldun guztiok poztu bear gindezke. Au bai-da alkartasunerako urratsik onena. Gazte guztiok, ontan bederik, pentsamentu batekoak izatea ez da txoriaren ziriña.

Ortik asita, gazteak zaarrekin alkartzera joan gindezke. Baiñan ontan ere urrats edo pauso ederra eman degu. Gazte askok, abeslari protestalariak beñepein, asi dira itzez ez ba-da kantu-egintzaz bederik aitortzen zaarrak zeredozer ona utzi zigutela. Zenbat mesede ari dan egiten zaarrak utzi ziguten «El Cancionero Vasco» batek, iñork ongi ez daki! Ez gera gogoratzen lilluraturik entzuten gaudenean.

Buruak argitzen ba-doaz. Poztu gaitean euskaldun bezela. Folklorearen lengoratzea edo «errehabilitazioa» eldu da.

OLAZABAL'DAR XABIER



1971 Argi bañija. Amets bañijak.

BBB

BANCO DE BILBAO

THE HIT PARADE

EUSKAL DISKOEN SALKETA NEURRIA

Urrillaren amaierako zenbaketearen barri emon gendun aurreko zenbakian, ez dogu oraindik jaso Azilleko osoa, 15'garrenerakoa besterik ez. Ta aurreragoko illean ain ederto saldu ziran batzuk, atzerakada bat egin dabe, il ziranen gomutagarri diran illaren lenengo egunotan; «Txori txikiak» ez da oraingoan lenengo; «Ni ez naiz ni» ostera lenengo seiren artean dator. Daneri opa bear mailladan gora etortea, ta ori ezin dala, auxe opa dautsegu, Gabon jaiak urreratzean, danok salketa aundiagoa izan dagiela!

Ara ba emen, ondoren, Juan Manuel Ares'ek bialdu dauskuna; bere azterketa lan ori ez da makala izango, illeak, zear an eta emen begiratu, galdetu ta salketa orrein zeaztasunak batu:

1.—«Neska Zarrak», Urretxindorrak.

2.—«Ai Amatxo», Urretxindorrak.

3.—«Ezin Aztu», Luis Mariano.

4.—«Danok Lagun», Naikari.

5.—«Mendi Puntatik», Urretxindorrak.

6.—«Ni ez naiz ni», Unsain.

7.—«Barberak Esperantza», Oskarbi.

8.—«Iguriako Boluan», Urretxindorrak.

9.—«Ez Kanta Beltza», Lertxundi.

10.—«Bertsolariak», Oñarriak.

Ta Ares'ek diñoanez, Urretxindorren gora bear au indartsu ei-dator, eta ez dala erraza izango, au ikusita, artu daben gorakada ori beste iñok, oraingoz beintzat, azpiratzea. Ala ta be, ta joan zan illean jazoa ikusita, ezin ezer ososoan baieztu. Urtearen azkenengo zenbaketaren zain geratu bear.

15-XI-70

PABLO CASALS

TA BERE 94 URTEAK



Gizon aundi, ospetsu, ta biotz zabala dun Pablo Casals, biolin-txelo tresna orrekin, jotzalle argi ta famatua, nik azken aldiz berakin itezgin nuala, urte batzuk igaro dira, Puerto Rico'ko uri eder ta politan.

Urtero joaten giñan ara. Uri polit ortaratze bakoitzean, aste bete egiñaz. Olako jun-etorrietan, bakoitzak berekiko egin oi degu, pentsatuaz, aurtengo bertaratzean, zer berri nabaituko degu? Ze lekutan joan ta ikusi? Edo-ta, zeintzuk agurtu? Ezagunik bai ote dago uri eder ortan, bera ikusteko ta agurtzeko?

Bostgarren urteko bira aldian, esan nion nere beste euskaldun lagunari: Aizak eta, zergaitik joaten ez gaituk Pablo Casals ikustera. Berakin elkar izketa egitera?

Esan eta egin. Artu nun urrutizkiña eta deitu nion berari... Berealan erantzun zidan bere emazte eder ta gazteak...ALO, con quien...? Nik, tripak «corazón» eginda, erantzun nion: Ara ba Marta, bi lagun euskaldun gera gu. Gogo bizia daukagu zure senarrakin itzegiteko. Bosgarren aldiz etorri gera onera, ta... beti joateko gera zuek ikustera. Bai, badakit zuek gu ezagutzen ez gaituzula, bañón...

Ene bada! Etorri nai dezuenian! Arratsaldeko bostak aldian dezute ordurik egokiena.

Gure poz-atsegiña aundia zan une artan. Biotzak alako tinkaaldia emanaz. Arratsaldian, apañ-apañ jantzita, orra nun joan giñan beren etxera. Jo tinbrea ta, atea ireki zigun Martitak berealan sartu azi barrura ta, exeri azi, agertuaz guk ainbeste aldiz ikusi nai gendun Pablo Casals aundia.

Pablo jaunak berealan galdetu zigun; ortako elkarri eskuan emanaz: zein alderditakoak zerate?

—Ni getariarra, ta beste lagun au, ondarrutarra.

—Getariarra...? Getarik bai du gizon ospetsua, Elkano bera. Baita ere txakolin goxo ta ederra. Ekarri aldezute edari ori?

—Ez jauna. Gu ez gera bizi euskalerrian, Venezuelan baizik...

—A...! Ulertzen det.

Ez dakit zenbat ordu egin genduzen bertan. Itzegin eta itzegin denpora azkar joan zitzaigun. Azkenik, jeiki giñan eskerrak emanaz bieri ta besarkada luze bateaz agurtu giñan.

Pablo Casals jaunak asko eskertu zigun gure jokaeraz. Begietatik bein bañon geiagotan malkoak ixuriaz. Marta, bere emazteak ere poztasuna agertuaz. Pablo jaunak, une oietan alaitasun aundia adierazten zun. Bazirudin gure itz guziak biotz barrenean ontzat artzen zituala. Batezere, esan genionian, ogei urte luze joan zirala gure Euskalerritik irten genduala, ta laixter joateko giñala ara.

Gaur, urteak dira, erbestian egon ondoren onera etorri naizela. Egun auetako batian irakurri ditut emengo izparringi batek ekarri dituan bere berriak, berakin egondu diran emengo lagun batzuek idatzita. Orretxek eman dit emen nik, EUSKERAZ zerbait idaztia beratzaz.

Pablo Casals jaunak, gaur berekin bizkarrean darama urte asko. Orain bost urte ikusi genduanean jakiña, gazteagoa zegon. Gaur ala ere, idazlari oiek diotenez, ta ikusi bere ta bere emaztearen argazkiak... badirudi beti gazte arkitzen dala.

Zergaitik onuntz ez da etortzen? Naiz ta alako biratxo bat badarik? Nik ere berak bezela nerekiko makiñaldiz pentsatu nuen... noiz joango naiz nereak ikustera? Nere erria ikustera? Aspaldiko urtetan irten emendik eta, orratiokan gaur emen bizi naiz gere errian, aberrian, etxian, senide artean, seme ta emaztearen babesean.

Bi gizon ospetsu dira, bat PICAZO malageñua eta bestea Pablo Casals katalandarra. Biak, bein betiko irten ondoren, geiago onera etorri ez diranak. Ala ere, beren naia, pentsaerak, espirituz emen daude. Guk berakin eta berak gurekin.

Izan ere, Puerto Rico! ain erri eder ta polita da! Ez naiz ni arritzen asko. Beti esan oi det lagun artean edo etxian. «Nik, emendik kanpora il bear banu, Puerto Rico aukeratuko nuke! Ze Paradizo obeagorik! Bai du Donostiko kontxaren antza, Aze nolako erri eder, polit eta apaña! Ango millaka txalet, bide luze, ondartzak, hotel ta abar. Bertako biztanleal berriz, oso jatorrak, batez ere, esaten bagenion nungoak giñan... Leku artara edo aruntzago joan bear ba'gendun, ta galdetu bertakoari nundik joaten zan... berealan laguntzen ziguten eramanaz bertaraño.

Azkenik, bukatzeko esango det, lagun ugari egin genduzala. Bai sendietan edo ta, bertako sal-erosketetan.

Puerto Rico, Kai aberatz, emen ni zurekin.

E. OZKIN



Z U B I R I

Gerri-loturak,

Azpi-jantziak,

Soinkera liraiñak.

Artekale, 50 **Bilbao, 5**

JULIO BAROJA'KIN «SOLASEAN»

Batasuna nola eta nondik?

Igandea. Irailak 20. Azaro-leena. Gaurko egunez, iriki oi zan, Goierriko zenbait errietan, garoketa. Neguarontz goaz. Zein miresgarriak Lizardi'ren itz auek: «—Oi, zein dan itunabera bear au! — Nik ez nai eguna-biurtzerik gau!»

Azken urteetako oiturari jarraituaz, Donostia'ko J. Gamecho, ene adiskide mina eta ikasia, ta biok bagoaz Julio C. Baroja'ri eta bere familiari ikustaldi bat egitera. Udaldia pasatzen Bera de Bidasoa deritzan erri maitagarrian daude eta gaur elkarrekin familiko festa bat egingo dugu.

Eguerdia. Eldu gera, eldu geranez, Pio Baroja Nobelariaren etxera. Gure artean, nork ez du ezagutzen «Itzea», bakartia, loraz eta landaraz inguraturik, Frantziarontz dijoan orgabidearen ertzean dagon etxe sabal eta zaarra?

Etxeko atarian, gure zai, J. C. Baroja, bere anai Pio eta onen emaztea Josefina, ta auen alabatxoa «Carmen». Otordu bikaina amaitu ondoren, nere adiskidea «siesta» pixka bat egitera dijoa, bere etxean bezala.

Julio C. Baroja ta ni, aldiz, gela ixil eta paketsu batera, ixiltasuna baita pentsamentuaren giroa. Urteoro bezala, aurten ere, ba du J. C. B.'k niretzat esku-erakutsi edo emaitza txukun bat, argitaratu berria dun «El mito del carácter nacional. Meditaciones a contrapelo» deritzan liburuxka alegia. Mila esker, ene lagun Julio!

Bera etzanik dago eserleku zabalean. Barkatu arren, Julio! Baina eguzki bizi bizia datorkit leio ortatik. Apurtxo bat biltzen utziko? Julio ixilik dago, begi andi eta irikiak nigana zuzenduaz. Begiraile eta zelatari dirudi, ea nondik joko ote dion ene galderak. Baina egunko «interview» ontarako ez dut besterik galdera bakarra baino.Ba duzu, Julio, berririk «euskera batuari» buruz darabilkigun burruka eta polemikari buruz? Baiez dio, itzez ala nola buru makurtzeaz. J. C. Baroja'k, gertu gertutik, urratsez urrats, jarraitzen du gure arteko burruka, baina ez, ordea «dilettante» baten gisa, burrukaren sustrai eta barrenduratik baizik, egiazko jakintsuak oi duenez.

Begiz begi, Janeko mai gainean, daukat irikirik Iruña'ko Aldizkari ale bat «Fontes linguae vasconum» (Enero-Abril, 1969). Ta an, barnean, J. C. B'ren lan bikaina «Observaciones sobre el vascuence en el Fuero General de Navarra». Bestalde, ez dut ezagutzen euskal erriaren sozial histori ederragorik «Los vascos» deritzana baino.

«Zer dizkiozu «H» inguruko polemikaz»?

Beraz, berak du itza.

«H» delako izki edo letra orrek izan zuan bere toki eta soinu berezia gure izkuntzan, XI edo XII'garren gizaldian.

Nik nere eskuetan erabili oi ditudan «Kartularioetan» izki edo letra ori marra marra dabil.—Kastila'ko erdaran ere berdin gertatzen da.

Baina «H» prolema «teoriku prolema, historiku prolema da egun» (sic).

Gaur zutik, bizirik balego «euskera historiku eta etimolojiku ura», egoki litzake «H» gordetzea.

Ba dira, bai, Europa zear, zenbait erri eren izkuntza historiku eta etimolojiku mailan gorde dutenak.

Guk, euskaldunok, ez onela, beste era batera baizik.

Azkue ta S. Arana'ren bidez eta indarrez, euskera berri bat edo oso berritua sortu da.

Beraz, «H» letra onek ez du deus egitekorik gure izkuntzak azken denboretan artu duan bide edo lerroan.

Kastila'ko erdaran ere onelako zer edo zertxu bat gertatu zan. Erdara ontan, ba ziran, ba ziranez, bi letra «h» eta «v», izkuntza barnean, toki eta soinu berezia izan zutenak.

Egun, ordea, —fonetika aldetik esan nai dut— ez dira erliki batzuk besterik. Euskeraren etorkizunari begira, egitekorik nagusiena auxe da, dio, euskera «sinpletu, erraztu, zabaldu».

Ederki, On Julio. Ta puntu onetaz, aski da noski.

Baina, batasuneko bidea non?

Elkar-izketa erraztu naiean, bi bide jartzen dizkiot, aurrez aurre, J. C. Baroja'ri: politikaren indarrez ezarritako bidea bata, ta bestea Akademiak eta izkuntzalariak, goiko lerroetan, markatu dezaketen bidea.

J. C. B.'k irugarren bidea maiteago du.

Berak ez du beste biderik ikusten auxe ez bada, alegia, sortu dedila EGILE EDO IDAZLE BAT, LIBURU BAT, ez zientifikua, ez azalekoa, askoen arimak eta biotzak ukituko dituan liburua, erri oso baten sinbolo izango dan liburua, «oe-buruko» liburu izatera elduko dana, noski.

Gisa eta era onetaz, sortu zan aleman izkuntzaren batasuna, dio, Martin Lutero, idazle liriku eta kartsu arrek, alemanez Biblia itzuliaz, erlijio arteko gerla bete betean.

Gauza bera edo gertatu zan, Italia'n, Dante idazlearekin, XIV'garren mendean, Aita Sabtuaren inguruko polemika zala ta.

Ta ingelesen artean, nork ez du ezagutzen, nork ez du irakurri C. Dickens nobelaria, naiz etxekoandre edozeinek naiz Lor andiak?

Guk euskaldunok ere, dio, ez dugu beste biderik, batasuna lortzeko.

—«Nos hace falta un autor gordo» (Sic).

Gerta liteke, dio, gure izkuntza, dagon dagonean, batasunaren eske eta bearrean, batasunera eldu gabe gelditzea.

Ta Akademiak?— Ta filologu eta izkuntzalariak? — Ta teknikuak, zer? galdetzen diot nik, nere aldetik, jakintsu libro eta aske dan J. C. Baroja'ri. Akademia eta gainetikoak, atze atzetik, gero, datozte, dio.

Izkuntza zerbait irrazionala dala, esan liteke, dio. Azken puntu argitu naiean, histori polit bat dakarki.

Zegaitik esaten da «montar a caballo» eta «montar en burro» gauza bera adierazteko?

Bi forma oriek idazle ospatsu batek erriara bota zituelako eta geroztik, beste erremediorik ez, norma biurtu dira.

Burura datozkit J. R. Green'ek diona ingeles erriari buruz» — England became the people of a book, and that book was the Bible» — «Inglaterra eldu zan liburu baten erria izatera, eta liburua Biblia zan».

Euskera eta zienzi berria

Ni neroni garbizalea ez naiz. Baina, gogoz ezagutzen ditut, pisu eta neurrian garbizaleak garbizale izateko dituzten arrazoiak.

Ejenplo erraza jartzen diot, aurrez aurre, J. C. Baroja'ri. — Nolaz obeki esan, «itun» edo «testamentu»? — Bere iritziz, «testamentu» esatea obeki litzake, ala beste Europako izkuntza ikasietan erabili oi dalako.

Grezitar eta erromatar itzetara jo bear dugula, dio, ez bakarrik «erri arteko karta» dutelako, baizik era ekonomiku lege batean oiñaturik daudelako etorki artako itzak.

Egia. Gizonaren adimena, diot nik, alferra da berez. Langilea, aldiz aldi eta bearrez.

Gipuzkoaren historian utsuna

Mugaz beste aldeko euskaldunak, «grafía» buruz, arduratsugoak izan dira emen, alde ontakoak baino. Zergaitik? ez dakit, dio.

Erdi-Aroko azken denboreetan, anitz eleji edo minazko olerkiak, bikainak eta ugariak, galduak dira betiko.

Garibay'ek ba dakarzki izpi bat edo beste. Gauza penagarria!—Gero, berriz XIX'garren gizaldiko bi etxe-gerlak kalte andia egin diote gure izkuntza eta kulturari.

Gipuzkoa «grafiaz» arduratsugoa izan balitz, egun Eskozia zaarraren pare giñake.

Nafarroa ere or dago. Dela zenbait urte, Iruña'ren egoaldean, Obanos'ko marra ortan, erruz egiten zan euskera.—Zer dala ta, izkutatu da, ain urte gutxien buruan?

Gure, Gipuzkoa'ko idazleen artean, J. C. B'k maite du, errikoi eta berriemailea danez, Zalbidi'ko Iztueta, batipat emengo dantzari dagokion liburua.—Zergaitik ez berriro argitaratu? dio.

Arratsaldea da. Eguzki ilkorraren azken dirdira gorriak. Goazen, goazen etorri geran bidetik, Donostiarontz.

Agur, Agur!

Negu on bat igaro denok! — Itzea, irailak 20.

(J. C. B.'ren formal baimenakin, argitaratzen ditut solas auek).

JOSE LASA

Egillea: MUNIATEGI'tar Sabin.
Izena: Bidean gora.
Irarlea: Bilbao-irarkola etxea.

Muniategi Olerkaria

Gure idazleen artean entzuterik aundienetarikoa dauka MUNIATEGI'k. Eta bide zuzenez irabazitako entzutea, benetan.

Euskalerrian «bertsogille asko eta egiazko bertso gitxi» daukaguzela diño itzaurrean gure Aita ONAINDIA'k (5n. orrialdean). Bertsolariai buruz ez neiteke ni ain gogorra izango. Zenbat bertso eder eta bero entzuten dan gure jaietan. «Itz neurtu asko, baiña benetako olerkari gitxi». Au errezago siñistuko neuke. Ez da ain erreza, benetan, olerkari on bat aurkitzea. Baiña ba dagoz baita...

Olerkari onak, lenengo, bere barruan olerkia asmau egin bear dau, eta gero agertu: «Enparauak sumatu arren, esaten ez dakiena adierazteko doaia duen gizasemea», da olerkaria (5-6 orr.) Eta gure MUNIATEGI'k adierazte au lortu dau: «Asko idatzi du Euskalerriko izparringi eta aldizkari geinetan eta or uzti digu garraxiz, intziri leunez, maite-miñez, negarka, ondo-naiez bere arima osoa» (7n. orr.).

Zarate Mikel'en Eretxia

ZARATE Mikel'ek bere *Bizkai'ko euskal-idazleak* liburuan, 255n. orrian gogoratzen dausku idazle au: 1912'an. Gautegiz de Arteaga'n jaioa dala diño eta bere izenari iru izen-lagun ipinten dautsoz: olerkari *ona, sakona,* ta *ugaria.* Eta bere lanen artean «laister argitaratzekotan» *Bidean gora* agertzen da. Gero *Bidean gora*'tik artutako olerki bi.

Aita Santi Onaindia'ren Eretxia

Aita Santi Egillearen adiskide dogu eta berak egin dautso itzaurrea liburu oni. Itzaurre onetan asko goratzen dau MUNIATEGI. Eta errazoiz goratu be.

IDAZTI BARRIAK

«Izkera berri, argi, arin, ausartuan egiñak ditu olerkirik geienak» (9n. orr.).

«Arrigarria da poema geienetan darabillen itz-jokoa. Poesi-izkuntza berezia aizeatu ere bai. Nere iritxiz, eredugarri dogu: elerti izkuntza bipilla darabil» (9n. orr.).

«Ez tu kidekorik euskal olerkarien artean, ez lengoetan, ez oraingoetan. Atzerritarrenetan, baiña, badu antza zenbait poematan, bear bada, Gabriel y Galan'ekin (9n. orr.).

Eretxi zuzena, neure ustez, Aita Santirena. Baita batzuetan Gabriel y Galan'en antza daukala esatean be, batez be izadiari begira egiñak diran olerki askotan: udabarri loretsua, aize biguna, ibaiak, landarak...

Bertso Lokabeen Arazoa

Asko dira gaur bertso lokabeen, libreen, egille. Bai euskeraz eta bai erderaz. Ni neu, egia esan, aurka nago. Gaur egiten diran bertso lokabe asko iñondik be ez dira bertsoak, eta lerro labur eta ezbardiñetan dagozenez, lerro luzeetan idatzi ezkero ez leitekez bertsoak izango. Olan izanik, obe litzake itz-lauz idatziko baleukee. Olerkia barrua edertasunez agertzea dala? Orretan nago beu be. Baiña olerkia nuertitzez edo itz-lauz egin leike.

MUNIATEGI'k ba daukoz bertso lokabeak. Neure ustez ez dira onenak. Ba daukoz, baita, lokabeak izan arren, itz-amai antzekoak daukezenak be, erdi-bide bat artuez. MUNIATEGI'REN olerkirik ederrenak neurtizez eta itz-amai bardiñez datozenak dira.

Baiña neurkera au zelan egin euskeraz? Agokaldiak, silabak, zenbatutea ez da ain gatxa. Baiña agokaldi onei «ritmo» bat emotea... ori bai lana. Latiñez oiñen bidez egiten zan, erderaz izkoi, azentoen, bidez, Eta euskeraz? Ez dot egotaldiak baiño beste biderik aurkitzen, eta gure olerkariak ez dabez egotaldiak konturatzen. Bertsolariak bai, doiñuak eskatzen dau ta, baiña MUNIATEGI ospetsuak be ez daukaz egotaldiak gogoan, bere olerkiak ez dauke «ritmo» bizirik, neurtuak eurak be ez.

Liburuaren Irarkera

Liburua polito irarrita dago. «Argi ta garbi», berak sarri esaten dauanez. Neuk olerki bakotxari zenbaki bat ipiñiko neutson, eta errezago agertu al izango zan olerki bakotxa zein eta zelakoa dan.

Eta zergaitik ez, alkarren antzeko olerkiak pillatu eta liburua iru edo lau zatitan egin? Esaterako: gizarte-arazoa darabillenak, izadia gai lez darabillenak...

Egiturea

99 olerki dira eta, apur bat nuntzebarri nazen ezkero, zergaitik eun ez ete diran nago. Ala ez ete dodaz ondo zenbatu?

Olerki oneik, antzeko gaia daukenak alkartu ezkero, eta ez da lan erreza, 6 dira bizitzea gai dabenak, 29 gizarte arazoa dabenak, 24 izadia dabenak, 4 aberria dabenak, 27 olerkariaren barruko miña agertzen dabenak, 9 Jainkoa izadiagaz batera darabillenak. Baiña banantze ta alkartze au gauza argia eta ziurra ez da.

Liburuak ez dauko batasun aundirik. Ori ta guzti be MUNIATEGI bidearen eta bizitzaren olerkari lez agertzen jaku eta bide eta bizitza au, geienez, Jainkoagana doaz. Benetan olerkari Jainkozalea eta zuzentasun zalea, gizon zalea da. Ain zuzen be Jainko-zaletasuna eta geide-zaleta suna kristau-bidea da.

Azkena

MUNIATEGI'k sakon-sakonetik atera ditu bere biotz-eragiñak eta biotz-eragin orreik agertzeko olerkarien trebetasuna erabilli dau eta bere idazkerea, iruditsua ez bada be, barrumiñez beterokia da eta joskera ederra bide dala bertso ederrak egin ditu.

OLAZAR Martiñ'ek

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k, idazti eder eta garrantzitsuenak argitaldu edo, lenago agortuta egozan euskal-pitxirik zoragarrienak, barriz eskuratu dauskuz. Aor, Azkue'ren iztegi ezin obetua; euskal abestiz gainezka datorran beronen Cancionero Popular Vasco; RIEV, entzutetsu ta jakingarria; Kerexeta nekatu-eziñaren Diccionario Onomástico y Heráldico, aor, beste orrenbesteko erraldoien artean «Peru-Abarka» euskaldunen «liburu gorria». Gaur baiña, zure aurtxoak gogoan daroguz, ta emen dakartzuguz erregenetan, jostaillu apurtugarrien artean *ipiñi* barik itzi ezin daikezuna, euskerea umetxo orrein ezpanetan maite ba'dozu beintzat:

Ipuin Ederrak:

1. Pinotxo; 2. Txano Gorritxu; 3. Iru Txarrikumeak; 4. Mari Errauskin; 5. Lamiña Ulegorritxua, ta abar, ta abar 16'ra arte.

Abere Alaiak:

1. Duri Kattagorri; 2. Terry Artzakumea; 3. Dudu Zalditxoa... oneik 9'ra arte.

Nora eskatu? Edozein idaztegitara, edo La Gran Enciclopedia Vasca, Prim 43-3.º Bilbao 6; Urrutizkinak: 24 33 01; 23 66 05; 24 87 93.

UBITZA

GIZON BATEKIN TOPO

(«El abrazo de los muertos» dala-ta)

Ez da errez, bizi geran egunetan, gizon batekin topo egitea. Eta, ez da errez, gizonik ez dagolako, izenezko baiño gutxiago dagolako baizik.

Gizon dan gizonak, egi osoa, bakarra aitortuta erakutsiko du bere zatasunaren neurria. Eta, aitortzen duegia, nolabait bere aurka ba'dijoa, orduan-gizonago azalduko da.

Gizon batekin topo egin dut. Baiña ez kalean zear; egunkari gisako liburatean baiño

Pertsona batek, bere bizitzaren illunbarrean, pasiak-pasa, liburu ori argiratzeko, ez du balore makala bear. Ez txantxetako gizona izan bear!

Balorea bear zen, ondo baiño obeezagutu nituen garai aietan, eguneko pandizo zorrotz aiek idatzita jasotzeko. Balorea bear da, gaurko egunetan, euskerriak axatu ez zuan gerrako leen eguneegillearen iritzia ain zuzen aitortzeko.

Ez nator, gutxiago ere! egillearen iritziarekin bat.

Goiko indarkeriaz menperatu nai zunoski bekoen bortxaketa. Lege zaarra (ta orduko) eleiz-gizonen dotriñetan jatzita, bere baitan, eleiza ta pake zaibat aldezkatu nai zituala pentsatzen du

Geroa beti da gero ta garaiak erakutsiko zion itxurazko edertasun guzurrezko ez zela.

Gudaren makurkeriak, bere onetik ateta justiziaren kontrako ekintzak idazksalatuko ditu.

Erailketa nazkagarriak lur jota utzidute. Egia, karraxika, oiuka esan nidu, ta, arrazoi orregatik, bere bizia arrisku gogorrean, ikusten eta pentsatzduena jasoko ditu...

Ba-du, Artetxe'ren liburu orrek, bertolariak, bertsotan oi duten ezer esatedigun bete lana ere. Baiña, argi ikusda gezurraren egiatzaz jabetu zela.

Liburuaren esan naia, gerra ta gurikeriaren aurkakoa da.

Ta, nire ustez, mito bat ittotzen bere eskuakaz: Kruzada'ren mitoa...

Liburuaren azterketa sakonagoa egiteko ordea, aurki azaltzeko agintzen dan «EL VASCO EN LA POSTGUERRA Diman (1939-1966)» irakurri bearko dala pentsatzen dut.

Irakurtzea merezi duan liburua delako «EL ABRAZO DE LOS MUERTOS». Baiñan, garrantzi aundiagoa irakurriatzaz pentsatzeak.

ZALOÑA

EUSKAL-MEZA

Diskoan

Aita BARTUREN pasiotarrak lederra egin dausku, erraldoia agiridiñoan lez. Eun bat bertsolari ta soinjotzaille alkartu, eratu ta zuzendisko eder au osotzeko.

Itzak, erriaren epeleko doñu-giroeskatzen eban. Eta gure soiñulariaseuskal jatorrikoz jantzi dauskue, ta disko barri onek errian zabaldu danok ikasi dagigun egiña izan da.

Ta auxe eskatzen dauskue, eskatuko ez ba'leuskue be gure egibearra da: erosi; gaur bertatik eskazen ba'dozu ta ordaindu, zure laguntarako asmoa benetakoa izango dta Jaungoikoa ta Euskerea aotik kaporako zerbait baiño geiago diraerakutsi.

Bialdu ba zure izen-abizenak ezuzenbidea: P. P. Pasionistas, Villarreal de Urrechua. Guipúzcoa. Urtizkiña: 87 11 89. Ta laguntzarakaldozuntxoa be bialdu. Disko onesalneurria, oraingoz, 300,— pezeizango da.

AIXOLA

GABON-JAIETARAKO ERREGALURIK ONENA IRUGARRENEZ ARGITALDU DA ATHLETIC-REN KONDAIRA

Ateraldi au, errikoia dozu, 321 laurleko baiño ez dauz balio, aurretikoen irakurgai ta gai guztiak dakazan arren

Oraingoan, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'ren ardurea bete al izan dogu: Erri osoari idazti ori merkeago eskintzea.

Lengoak, 1.400 laurleko balio ebazan; oraingo onek, goian esan dogun lez, 321.

Bilboko ostiko-taldearen bizitzako argazkitan 500'en bat daroaz; 71 urte bai dira talde ori sortu zala: 1898'garren urtean.

Argitaldariak, ba-dauz oindiño lenago apainkiro argitaldutako ale batzuk. Oneik erregalu aundia egiteko, berebizikoak dozuz. Ta erregalua egiteko, Gabon-jaiak egokienak dira.



AITA SANTUA IBILTARI

Ibilli dabilkigu VI'garren Paulo gure Aita Santu au. Batean batera ta bestean bestera ibilli ta ibilli. Izan, beronen Aita Santualdia laburra da oraindik. Zazpi urte besterik ez. Epe txiki onetan, baiña, bederatzi biderrez urten dau Italia'tik. Nok esango leukean?

Ibillaldirik luzeena azkenengoa izan da, Urruneko Eguzkialdera oraintsu egin dauskuna. Joan-etorri luzea, gero! Guztira 50.000 kilometro ortxe-ortxe. Lurbira osoari inguru egin bai'leutson. Ta zertxobait geiago. Azken gizaldiotako Aita Santuak egin dabena batera artuta be, ezin orrenbesterik izan. Urrik emoteko be ez. Luze aiña mesedegarri izango ete Elizarentzat eta munduarentzat? Egia izango al da!

Urtenaldiok banan-banan aitatu baiño leen, zera esan daigun: zer dala-ta dabillan VI'garren Paulo ara ta ona ibilli ta ibilli, Erroma'n geldirik eta patxadaz egon barik.

Ba dira, izan, ibillerok aintzat artzen ez dabezanak. Txarki esaka diarduenak An da emen, nun-nai. Politikazko edo aundinaikerizko zerbaitek ei darabil Aita Santua. Elizea aldun eta eukitsu agertzen ei da. Munduko almendunen kideko ta neurriko. Ez apal-apal eta beartsu, beronen izakerari dagokionez.

Aita Santuak, alan be, edonorako bidea artzerakoan, esan da esan egiten dau zergaitik doan eta zerk daroan doan tokira.

Ez edozelango asmo xixtrin-okerrak eraginda. Ez aundikiakaz alkartzearren. Ezta txaloak entzutearren. Ez dauala ezetariko osperik nai. Ezta lurreko irabazirik be.

Kristo iragarri, ori bai. Mugonez eta ezmugonez iragarri. Elizaren izana, gaurko izatea ta albistea egal guztietara zabaldu. Elizaren bidez Kristo'ren entzutea alik eta geien edatu dadin ta Beronen bitartez mundua Aitarenganatu dakigun.

Auxe bakar-bakarrik dala bere ibillaldi guztien elburu. Besterik ez. Ainbat eta ainbat bider jakiñazo dausku ori.

Paulo Santuak berak ez ete leuke orixe ber-berori egingo, gaur bizi balitzakigu? Nik baietz uste. Ta izentzat Paulo aukeratu eban gure Aita Santu onek Paulo aundi aren urratsei jarraitzen dautse. Aspaldi aretan oiñez, zaldiz ibilten ziran. Gure egunotan, barriz, berebillez eta egazkiñez. Aldian aldiko ibilpideak zelangoak direan eta alantxe.

Or doakizuz orain Aita Santuak gaur arte egiñiko ibilleraen zenbait xeetasun. Laburlabur, begiratu batez dana ikusi daizun.

—JERUSALEN'ERA.—1964'go urtarrillak 4-6. Eguzkialde Urreko Elizearen buru dan Atenagoras Agurgarriak eta biak alkarregaz tril egin eben, ekumenismu-arloari egundoko aurrerakada emonaz.

—BOMBAY'RA.—1964'go abenduak 2-4. India zabal-zabal aretako jendetza aundia txeratsu ta maitakiro besarkatu gurariz ibilli zala esan lei.

—IPAR-AMERIKA'RA.—1965'go urtarrillak 4. «Laterri Batuen Alkargoa» deritxan etxean otsaundiko berbaldia egin eban, bakearen ederra ta gizon guztien anaiartea gaitzat arturik. Norberaren zein errialde baten andikeria txartzat emon, gerrarako griña ezeztu, bizitza giza-balioen gallur-gallurrean ipiñi, izkillu-armak eukitzeko eralgi oi diran olako dirutza ikagarriak lurralde atzeratuek aurrera egiteko erabilli bear litzakezala, gizonak barruz eta biotzez aldatu bear dauala erakundeak jorratu aurretik... Oneek eta onango beste jakingarririk asko azaldu euskuzan alako egokiera berezia etorri jakonean.

—FATIMA'RA.—1967'go maiatzak 13. Eliza barruko ta mundu guztiko bakearen alde Ama Birjiñari otoi egin. Ona joanaldi aren xedea.

—TURKIA'RA.—1967'go garagarrillak 25-26. Atenagoras Agurgarriagaz barriro jardun eta jardun.

—KOLONBIA'RA.—1968'go dagonillak 22-25. Ego-Amerikatako erri ezeuki ta xeagaz anaikiro izketan. Zuzenbiderik eza sutsu astintzen dau.

—GINEBRA'RA.—1969'go bagillak 11-12. Emen be lana ta langilleak dirala-ta egin oi diran txarkeri ta larregikeriak salatzen ditu.

—UGANDA'RA.—1969'go garagarrillak 31 ta dagonillak 1-2. Afrika aldeko errimueta guztiei Elizaren ondo-naia ta maitakuntza daroatse.

—URRUNEKO EGUZKIALDERA.—«Gurari bakar batek naroa ara: apostolugintzak, bestek ez. Ez dot oi ez lango arrerarik gura, ezta aundikiei bakarrik egiten jaken erara jaunka ta goraka iñor ibilterik», iragarri euskun urten aurretik. Ibillaldi luzea be luzea izan dalako, eginbearreko itzaldiak ainbat eta ainbat izan diralako, era guztietako jendeagaz eta erlijiño batekoak eta bestekoak diranakaz artu-emonetan jardun bear izan daualako, azkenengo onek artegarazi dau geien Aita Santua, ardureak ia-ia gaiñez eragiteraiño.

PUXANA

Illetaz gagoz idazleak

Ezbear eta galtze aundia izan dogu euskal-elederrean murgilduta gabizanok: Geure idazlerik onenetariko bat galdu dogu. Garitaonandia'tar Gotzon, Mañu'ko abade jauna, euskerea ondo ta sakonki ekian idazle jator eta argia.

Gu euskaldunok era guztietara galtzen ikasiak gara, izan bere, baiña, naizta galduak galdu, aurrera jokatzen dakigu, bide zuzenak zear, ostopo, eragozpen naiz arantza. Ezbear ta galtzeak beti ezarri daroez, baterako naiz besterako, atsekabe ta larri-aldiak, eta oraingo onek bere, ez dausku atsekabe txikia ezarri, euskaltzaleori; eta ez utsune txikia be geure artean.

Sarri atsegindu izan gaitu idazkera zeatz, artez, eta lan jakingarriakaz, an eta emengo aldizkarietan. Nekez bete daike, beste abade gazteren batek, elizgizon jator onek itxi dauskun utsunea, aldi naastetsuotan.

Tasun guztien jabe genduan idazle zanez; eta gizona zanez, oso mezedegiña, lagungin eta gizarte-zalea. Ez genduan bekoki illunaz abadetasuna berekautan itto daroen abade azerrekor orreitarikoa. Ez! Guztiakaz zan lagun geideakanako maitetasun aundiz, eta Ebanxelioa dan lez, Kristo'k ber-berak adirazten ebanez, atonketa bagerik, edatzen alegintzen izan da ezeren ez iñoren bildur, esames ez ezetariko ikara barik.

Leelengoz alkar ikusi izan genduanean ez genduan izketan luzaro ekin bearrik izan entzin (konpiantza) osoz alkarren adiskide on egiteko. Alakoxe giza-emaiz ornidua genduan izan be, gero, Urdulitz'eko seme goragarri a.

Gazterik eroan dausku Jainkoak, eta gure atsekabeak-arren, onartua bedi, beti ta beti, Aren borondatea.

Eta zure gomutea, Gotzon, geugaz izango, otoitz-lokarriz, alkar ikusi dagikegun-arte.

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN

GOIZPAR-EBANJELIOA GAUR

Azter-asmaketa utsa dauan kristiñauen jakintzak uskurtz-errelijio gauzetan ez dau betetzen gizonaren biotza. Augaitik, sarritan, ikasbide mota ori bazterreratzen dabe. Baiña ur geldiari jazoten yakona, jazoten yako oldozmenari bere. Ustelduten da.

Ixillean, sator lanean jardun ziran teologoei zor dautsagu Batikano bigarrena. Barri onaren iritzi bat artzeatzaz gaiñera, zer geiago izango ete da oraingo teologoaren ta kristiñau jakintsuaren egitekoa? Egintzak eta jakintzak, politikak eta laneko munduak ain alegin andiekaz lortu daben aurrerapena, kristiñau bide zintzoak, Kristoren iraskizun-dotriñea, mundu orretara egokitu bear dabe.

Elexaren arpegi barria erakusteko ta Kristoren egia obeto sakonduteko kristiñau on guztiok alegin eta indarraldiak egin bear doguz. Teologiari dagokion onura guztia atera gura badogu, egoki izango litzake eliza-barruaren azterketa zeatz bat egitea.

Teologia apaiz-gitxitu egin bear da. Elizaren egituretan eta bizitzan, laikoek gogoz esku artzerik ezpadabe, Elizaren zuzentzan iñoiz eskurik izan ez dabelako da. Jossua aita frantzes teologoak esan eban lez: «Gaurko egunetan teologiak dituen egitekoak ikusirik apaizak zeregiñik gitxi dabe (sont infeconds)». Eta Walter Kasper jermandar teologoak, au esan eban: «Fedeak izatearekin bear leukazan zeregin-arremanak galdu dituelako, fedea leku kaskarrean gelditu da».

Eleizaren eta gizartearen kritika egitea, guztiz garrantzi andikoa da dudarik gabe: Kristau ori nor da? Zer ziñesten dozu? Ebanjelioaren mamiña zetan dago?

Kristiñau zintzo ta jakitunak orreri erantzuna emon bear dautsee egunero, baita gure bizitzaren aldi ezbardiñetan be.

Karl Rahner teologo ospetsuak iñoan lez: «formula zarrak baztertzeko ordua da...».

Barrikeri bat uste izango dabe askok Hans Hung teologoak Kristo'ren berbizkundeaz esan ebana: «Gurutziltzatua bizi da!... Ezta ardura noiz, nun eta zelan. Baiña Kristo bizi da. Bizitza barri bat emon yako. Garaille atera da».

Teologo orrek berak esan ebana gogoan artzekoa da: «Antziña-jakintza ta erakunderik deunenak besterekikotu egin ebazan Jesus'ek. Uskurtz eta gizarte eraketen eta onein ordezkari ta buruzagien aurkako erronka bizia da Jesus'en bizitza»

Politikaz bere jardun dira teologo orreik. Ona emen Metz aitak esan ebana: «Eleizak beti egin dau politikea ta orain be egiten dau. Ez da onetan erru bakoa. Abade, gotzain eta teologoak gizonen zapaltzeaz aizturik, «ez bat, ez beste» ren izenean, politikazko lokera zarraei eusten dautsee, ta Eleizea mandarin **billaka dirudi».**

Eleizaren oraingo estu-aldia, ez da noski Eleizea aztertzen dalako, kritika on bat egiteko azkatasun izpirik eztagolako baiño.

Bear bada Eleizea bera oraingo erabarriko azkatasunaren izatetik aldendu egin da. Baum teologoak bide beretik: «sarri askotan Eleizaren eraketari ta bakoitzaren gizarteko irabaziari eusteko bakarrik azaldu izan da Ebanjelioa».

LETONA

ITALIAR GOTZAIDIA

«Diakontza iraunkorraren berregintza mugonekoa ta bearrezkoa nunbait».

Monsiñore Luigi Bettazzik Erroman egunotan (1970-XI-9) baturiko italiar gotzaiñen VII'garren batzar orokarrari aurrean jarri dautso «argibide» mamintsu bat. Xeetasun onetan gotzain alkarteari diñotso Diakontza iraunkorraren berregintza Italian mugonekoa ta bearrezkoa lez begiratu bear dala.

Aulako zio edo zergaitia dakar bere agerpenari indar berezia damotsola: Gizartea geroago ta erritartuagoa edo errikoi-kutsuz biurtuagoa datza alde batetik antza, bestetik ostera tamalez Kristautazun-eza borobiltzen ta orotara edatzen doalarik edonok daki.

Oneitariko eragozpen ta oztopoai aurpegia emoteko egundo baiño bearrezkoago dogu gaurkoan Kristautasuna edonun zabaltzea, ta ortarako, gauza jakiña, diakonoak abadeak baiño beste zer ta erreztasuna dabe gaurko gizarteak onarturiko berein lekutan sartzeko.

Agerbide onetan gañeratzen dautse italiar gotzaiñei Diakontza iraunkorraren berregintzak ez dakarrela orain berez abadekuntza ondoren. Ots, luzeren luze edo garaiaz abade izatea.

Aulako berregintzaren jardun-bideak damoskuz bereala.

Lau era edo Muetako Diakuntzak

Lau muetako Diakuntzak dagerz argibide ontan.

a) Oso osorik zeregin onetara burua makurturik, uztarri kutun bateri lez, buru-belarri lotu oi diranak.

b) Diakuntza dala-ta euren bizitzako ogibideak izten ez dabezanak.

c) Gazteei buruzkoak. Oneik ezkongetasuna gorde bearrean dagoz alan be.

d) Ta guenez gizon ezkondu ta adiñekoei emoniko Diakontza.

Bettazzi Monsiñoreak aolkatzen dauz berebat argibideak zurtasun ta zentzutasun bereziak ta gurako leuke Italia'ko errialde orok gai onein buruz bardinduteko, Gotzain bakotxak edozelako erabagirik artu baiño len, iritzia eskatu dagiola errialdeko Gotzain biltzar-alkarteari.


Italiar Gotzaiñen VII'garren batzar orokorrak Monsiñore Luigi'ren agerbideari bere baietza badamotso, beti lez gai ontan, Elizpuru edo Aita Santuari osterengo erabakia dagokio.

ARREGI'TAR JOSU

ITZ-EUNDUAK

(III)

Etxebarria'tar Juan Angel



AGERBIDEA

(a.a. = atzez-aurrera)

ZEARRETARA.—A: Igalia.—B: Azpi. Zati.—D: Zabalera.—E: Lokarri-itza. Bokal bi. Arraza.—G: Geiegi. Nazka.—I: Trena. J: Galde-itza. Konsonante. Aseturik.—K: Mundu.


GOITIK BERA.—1: Konsonante.—2: Eskua izan.—3: Ardi-otsa. Txori-toki.—4: Anai (a.a.).—5: Bokal bi ta konsonante bi.—6: Itun.—7: Bururatu. Zara (ika). Konsonante. 8: Etsai.—9: Soloak.—10: Izatea dau.—11: Bokal.

Il'ren agerpenak:

Zearretara = Jel. — Il; Lege. — Barazar. Da; I; N; lioS.—niD; Txadon.—aokopeL; Ka; B; zA.—Se.—*Goitik bera* = D.—An.—iB; iaK.—Laidoa.—J; R; K; S.—Elantxobe. Lez; aP; I.—Galdez.—Eriola.—On.—S.

ASMAKETEA

Otaola'tar Itziar



Zer begiratzen dozu?

ZUBIRI - OTAZUA

NARRUZKO OIÑETAKO TA SAKELAK,

Era-barriak gazteentzat,

erosoak jaun-andereentzat.

Ascao, 4 **Bilbao, 5**

Eguberri abestiak

Barriz eta apain argitaldu dauskuez. Nok eta Oñatibia'tar Jon doiñulari zurrak. Gaur eskuratu al-izan dot, Distribuidora San Miguel orren etxean, eta gurean izan dogu lenengo saioa, gure goian bizi dan «baritonoa» doiñu irakurle gendula.

Ez dakit Gabon gabean giro onik izango dogunik, gaur illuntzi epel onetan abestu dogun guztia abestuteko, ez da izan edozelango. Sarritan, usteezean sortzen dira ekiñaldi lilluragarrienak!



San Miguel'ekoak esan daustenez, Gazteiz'en be izango ei-da il onen 24'an, Gabonetan bertan, idazti salketa ta erakusketa bat; orren asmotan ei-dabiz beintzat. An izango ei-dira okerrik ez ba'da beintzat, eta gabeko euskal-kutsudun betiko geure-geure aparia beranduago jan bear ba'dabe be; zuku lodia erdi-oztuta, baiña marraskilloen saldea lodiagoa izango dalakoan, gozoagoa.

Zorionak ba Oñatibia jaunari. Asmorik onenak Gazteiz'ko erakusketearen antolatzailleri be, ta bultza bat —askorik ez dabe bear— San Miguel'eko Kepa, Joseba, Xabier era laguneri. Ea bete-ala ustuten dozuezan Torre kaleko 3'an daukazuezan idazti: arasak. Zuek bai gazte jatorrak, jatorrik iñun ba'da!

IBUR

DEIA

Idazle maite. Arren-ta-arren diñotzugu, barriz, lenago esan gentzuna: Zure idaz-lanak AGUR'en agertuko ba'dira, laburrak bear dabe izan; kuartilla bi edo iru gitxi-gora-bera. Alde batetik, ez daukagu bear aiña toki, naita orriak ugaritu; bestetik, ez ete-dakizu zure idaz lan luze ori iñork ez dabela irakurten? Irakurle barrientzako, (ta orreik zaletzearren gabiltz), aspergarria da, ta emendik bosteun urtera aztertzen ibilliko diranak, ta ez lenago, ezingo dabe zertarako idatziak izan ziran asmatu.

Ori, ta beste idazleeri ostuten dautsegun tokia, norperantzat utsik nai izatea, berekoikeri aundiaren ezaugarri da. Orra ba, luzeegiak, barriz bere egilliarenera itzuliak izango dira, ta azketsi.

AGUR

EUSKAL ADITZA

BIZKAIERA

Egillea: PEDRO PUJANA

Salgai: EGILLEARENEAN ETA LIBURUTEGIETAN

DANTZA-LEKUAK

Barriro be «Agur» aldizkariaren orriak izango dira, zuoi agur egiteko nire txokoa. Orain-goan, apur bat illetari ikusiko nozue.

Zoritxarreko jazoera batek guztion biotzak zaztada gogorrez astindu zituan. GRENOBLE'ko dantza-lekuan 146 gaztek, goizeko ordubatak aldean, euren bizitzak galdu zituen. Munduak gazteai eskeintzen dautsan atsegin-janari aretan aurkitu dabe euren azkena. Eriotzak artu ditu bere baitan.

Zigarro-mutxikin baten ondoren negargarria! 146 gazte illinti baltz, ezagutueziñak biurtuak! Eriotzak ezorduan deitu dau gazte oneen atean, baiña bein deitu ezkero, arek bere egitekoa erruki bagarik amaitzen dau inguru guztian dardarea sorturik.

Kristau-eraz begiratuta kezka larri bat nabari da askorengan. Zer? Arazorik naikoa izango dabela gazte orreek beste mundurako sarreran. Ni neu beiñik-bein, beste zer batek kezkatzen nau geiago: jazoera orren sustrarean eta oiñarriandan pekatuak. Irabaz-bidearen (negozioaren) atxakipean bere burua ezkutatu nai dauan pekatu aundi orrek ikaratzen nau geiago. GRENOBLE'n euren bizia galdu eben 146 gazteak, beste «jaun batzuk» nora-nai erabilli dituen jostaillu batzuk izan dira ziur ziur. Buru ta biotz diru-bideetan murgilduta dabiltzanak, ondo be ondo dakie zelan jokatu, ze tekla jo gaztedia euren sarean arrapatzeko. Sare iguingarri ori, lizunkeria izan oi da ia beti. Arpegi polit eta atze itxusidun lizunkeria. Ortxe jausten dira itxura kilikagarri orren aurrean millaka gazte «jaun orreek» (kapitalistak) ezarritako sarean. Bizitzako bideetan oraindik zaildu bagarik eta ez-ikasiak diran gazte errukarriak! euren nortasunez ustuak, «jaun kapitalista» orreen jostaillu ta tresna biurtuak!

Makiña ta teknika-aroan bizi gara. Makiña orreen tartean, amaika persona dabiltza makiña orreen txatal batzuk bezela erabilliak, euren buruen jabetasuna galduazo dautsenen erruz.

«Komunismoa» aspalditik madarikatua dago geienon kontzientzietan. Baiña «Komunismoa», aita oker baten semea dala, ez dogu egundo be aaztu bear. «Kapitalismo» maltzur ta azpi-jokalariak sortzen dau «komunismoa», bere aitatasuna ukatu nai ba'dau be. «Kapitalismo» aren zuzentasunik-ezak, berez-berez sortzen dau beste landara ori. «Komunismoa» k Jaungoikorik ez dau onartzen; Jaungoiko bakoak izan, baiña agertu be, alakoxea agertzen da. «Kapitalismoa» k ostera, «illobi zuritua» diridu. Ez dau bere burua dan bezela agertu nai. Bere burua zuritzen diardu.

Gizonari, bera dabillen tokian bertan *botatzen dautso amua*. Langilleari lantegian, neska-mutillai dantza-lekuetan eta abar. Amu orren ezten zorrotza, amuzki edo jaki goxo-atsegingarriz ezkutatuta dago. Bakoitzaren ao-sapaia zelakoa, alakoxea izan oi da jaki ori be. Bakoitzaren arima-ondoa zeatz aztertuta dago, argalkeri ta griña orreek euren joko gaiztorako erabilteko. Gaztedia da batez be euren alegiñen jo-muga ta elburua. Gaztedia arraptzeko, dantza-leku ta jai-etxeak ei dira tokirik aukerakoenak. Lizunkeriaren jakia eskiñi ezkero, nortasun sendo bat ez dauan gazteak ez daki bere burua zaintzen eta errez jausten da menderatzaille maltzurren eskuetan.

Orra or diruaren jauntasuna; «kapitalismo» aren triskantza. Orra or bere lorrotza. Orra or gaztediarentzat jarri dauan «eskola»...

Gure euskalerrian be, zoritxarrez, kapitalismoak jarritako «eskola» orreek ugarituaz doaz. Gazteak jolasa ta ortarako toki egokiak bear dituanik, ez dogu ukatuko. Neska-mutillak alkarregazko artu-emonak izatea be, gauza ona ta bizitzari berez darion eskabide bat da. Bizitzako atsegin onak ezin leikioz gazteari debekatu, baiña barru-barrutiko gose-egarri ori, bere duintasuna galdu-azoteko erabiltea; gaztearen berezko argalkeri ori, dirua aterateko iskillu ta tresna biurtzea... jokabide trixtea da ori.

Askatasunik gabe dagozen Laterrietan be, beste orrenbeste jazoten da. Personak estaduko makiña aundi orren txatal egin nai dira. Baiña erri batzuk edo gizatalde batzuk ez dira makiña orretan egoki sartzen, *euren nortasun berezia* dabelako. Orduan Estaduko indar-biziak nortasun ori apurtzera ta iltzera egiten dabe. Erri bakoitzaren bereizkuntzak desegin; erri-erriaren izakera ori aaztu-azo ta «bardinkeri» baten moldeatu nai da gaztedia; molde batetik sortutako piezak egin!... Ortara doaz izparringi, telebista ta irratiaren indarrak. Ta indar orreek Euskalerriko umea ta gaztea arrapatu nai dabe oso-osoan. Sarri askotan, asmo zital orreek aurrera eroatea lortu be, ondo lortzen dabe. Erri baten nortasuna iltzeko, eta begiak itxita, ixil-ixilik eta bigun-bigun, nagusi batzuen jostaillu izateko bide egokiak asmatzen dira. Zeintzuk dira bide oneek? Gaztediari bere erriaren arazo gogorrak aaztutzeko neurri bagarik eskeintzen jakon janari ariña. Esate baterako kirolak (deporteak). Dantza-leku ta jai-etxeetako giro lizuna. «Eskola» orreetan eziak urtengo dabe gure gazteak; biarko gizonak. Gazte oneen bizkar dago gure etorkizuna. Eurak dira biarko gure Erriaren oiñarria. Euskalerri maite onen bideak zuzentzeko izango ete dira gauza gazte oneek? «Kapitalista» ta «diktadoreen» eskola orreetatik bizirik urtengo ete dabe gure gazteak? edo ordua baiño lenago zaar eginda, zimelduta, agortuta geratuko ete dira gazte oneek? Zelan dago gaur Euskalerriko gaztedia? Zelan dagoz gazteai kili-kili ain lilluragarria biotzean egiten dautsen jai-etxe ta dantza-lekuak? Ona emen nire kezkak; ona emen GRENOBLE'ko jazoera orren sustraian ikusi dodan gaixo txar eta iguingarria...

BARAIAZARRA'TAR LUIS

DISTRIBUIDORA SAN MIGUEL

EUSKAL-IDAZTI SAIL EDERRA

IDAZTI ETA DISKO JATORRENAK

Urrutizkiña: 24 95 29 - Torre, 3-1.º

B I L B A O - 5

MENDIGOIZALEEN JAKIN BEARRAK

Esan oi dan lez, mendigoizaleak ikasia erabidezkoa izan bear dau, danok jakitunak bagara be. Nondik gabiltzan eta zer egin beh genduken jakin bearra daukagunak gara. Orretara baiña ikasten zaletu bear gara, urtero edo sarritan menigoizale bazkunak batzokietan eratuten dabezn mintz «diapositiba» orrein azalpen ta idazti bitartez. Bein baiño sarriago esan dogunez, mendiko geure gorputzak arinduteko badoguz, soinketa jardunera egiñaz, irakasketa orrein bitartez ikas daikeguz mendirako egokien diran gauza asko ibilkerak, arkaitz igokerak, baita janaririk egokienak zeintzuk diran be, goi-goiko mendietan bearrezko diralako batez bere.

Onetariko irakasketa batzuk, zortzi bat egu netan izan ebezan euren aretoan, Galdakaon Ganguren taldekoak, eta batzuetan, al-genduanen bertan izaten giñan. Mendigoizale purrukatu izanik atsegin yakuzalako orretzaz ikasi daikegu zanak. Mendietzazko mintz politak, arkaitz igoke ausartiak, mendirik-mendiko ibillera ikusgarri eta abar. Baita azalpen egokiak be arazo orreitzu kirol garbi ori ongi ezagutzen dabenak azaldu

Irakaskintza orreik mendizaleentzat ongarri ez diranik ezin leuskigu iñork esan. Baiña, be zerbait geiago erakutsi bear litzake, eusko mendi goizale gazteari batez bere. Soiñak sendotu ibilliaz, jakintzea ugarituko leuskiguna be be eusko-edestia; nondik gabiltzan eta non-zer dag jakingarririk; zenbat eta obeto ezagutu inguru ainbat eta lotsa geiago ta maiteago izaten dirala

Lagun urko bategaz edo senide batekin mendi ibiltea maiteago izaten badot be, bai erriko ta beste mendigoizale gazteen artean ainbat ibilli egindakoak gara. Tamalez, euretariko geie daroen jokabidea, erri-min gabea izaten da. Ma ingurura elduten dirala, geienak, lasterka doa nor-geiagoka lez, biderik onena edo egokie aurkituteko asti barik sarritan; mendigaiñera el bertan itzi txartela, agopeko bat egin zatoa pizt estutuaz, eta barriz errira jatsiteko lasterka ba Mendi orretan, aitzulo ikusgarriren bat, antziñ basatxauno jakingarrien aztarran batzuk-edo bu gozakin arduratu barik. Eta lasterka ori ez izaten errira jatsi ta erri ortako oroigaillu txadonaren egikera erromaniku edo gotiku aztertzea, gaztelu ospetsua tab., edo bere edesti ta oituretzaz zerbait jakiteko asmoan, ari ibiltearren legortu yaken aoa «zuri» mordoa edo garagardo batzuekin asetuteko baiño.

Ez, eusko mendigoizaleak! ori ezta zaletas Ongi dago mendira geure gorputzak aize gan asetuaz sendotzera joatea, orretarako goaz Alegindu bear gara baita geure adimena argitu jakintzea ugarituten, geure Aberria ezagutzen guztietan berau aldeztuteko gertu egon gaitez guda aurreko mendigoizaleak aurkituten ziran

MENDIOLA

TXIRRINDUKETA

Ziklo-Kross, baso-txirrinduketak asi ditugu ta or datoz Basualdo, Gonzalez ta lagun iztarrak berotzen. Laster erbestekoegaz neurtuko bearrean izango dira, ta areik be asi bainoz diranez, zertan diarduen jakitea ona litzake danontzat, ara ba emen zertzuk-batzuk joan dan illaren azken erdian jokatu diren lasterketak oiñarritzat doguzala:

Cuanteloup'en, 22 km'an: 1. Declerq ordubete ta 10'; 2. Rigon (F) 1' 05"; 3. Longo (I) 1' 45"ra; 4. Wolfshohl 2' 22"ra...

Lapeyrouse'en, (biñaka), 24 km'an: Guimard-Campaner, ordubete ta 20"; 2. renteau-Ditlecadet, 20"ra; 3. Guyot-Tilliere, 30"ra...

Boeil-Bezing'en, 24 km'an: 1. Bernet ordubete ta 18'; 2. Harings (H), 58 3. Dubois (F), 2' 04"ra; 4. Kimps (B) 15"ra; 5. Campaner (F), 4' 14"ra...

Monfort-L'Amaury'n, (biñaka), 36 km 1. Rigon-Grégoire (F), ordubete ta 2. Declerq-Pelchat (B-F), 2' 30"ra; 3. C quison-Vermesova...


Azillean ez dogu izan Vlaeminck anaie iñundiko barririk. Aurten bidezabaletan dabela-ta, ederto egin be bertan, ea b lasterketak baztarreratu dabezan. Ez onetan ara lenengo barria ta ikusi daikegu garaille dator:

Hanovre'n, 24 km'an: I. R. de Vlaem (B), 55' 17"; 2. Van Damme (B) 25 3. Renner (A) 2' 15"ra.

IZAR

KIROLAK

IGARTUA BESTE EUSKALDUN KIROLARI BAT



★ «Etxean euskeraz egiten dogu beti»

Igartua ta Mendizabal'tar Joxe Mari, Atleti'ko ostikolari ospetsuagaz alhar-izketan izan gara. Orain dala denpora bat, elorriotar gazte oneri jazo jakona danok dakizue ta ordutik ona ezin izan dau jokatu. «Ligea» jokatzean zartada gogor batek azur bat apurtu eutsan.

Beratzaz ezer esaten asi baiño len, bere bizitzakondaira azaldu nai geunke, gaiñetik, berba gitxitan.

Joxe Mari Igartua, Bizkai'ko errietatik politenlariko baten jaioa da, Elorrio'n, 1050'eko

Orain, ikusi ba, zelakoa izan zan gure alkar-izketea Igartua'gaz.

Elorrio'en, bere etxean aurkitu gendun, bertan bizi da Aita-ama ta arreba bigaz. Gu eldu giñanean Joxe Mari diskoak entsuten egoan ta esan euskun:

—Atsegin jat musika barria edo «modernua» (gaurkoa).

Igeltzututa daukan oiñari begiratuz galdetu geuntsan.

—Zelan doa eten ori?

Gizon ona ta guztagarri da, ta uste dot Atleti'k leukazan ultze lokak berak gogortu dauzala.

—Zuri pozik aundiena emon dautzun gola zein izan da?

—Kopea jokatzean Rela Madril'eri sartu neuntsana. Zelai erdi ingurutik urten nintzan pelotoagaz, ta ez jatan iñor bere sartu, ta zulo bat ikusi nebanean ostikadea emon neutsan indar guztiagaz, ta gol...

Au esakeran goratu gendun zelako indarragaz sartu zan. Onek, Atleti'ri, Madriletik gol baten aldea ekartea balio izen eutsan. Baiña Madril'tarrak barriro Bilbo'ra etorri ziranean, amaitu ziran gure itxaropenak.

—Zer jazo jatzuen ba Bilbon?

—Eztakit baiña oso joko txarrak urten euskun bilbotarreri, Madrile'ri ostera biribilla. Batzuetan ilusiño aundiagaz urteten dozu ta gauzak txarto urtetzen asten dira, or apurtzen da ostikolaria, bere naiak bete eziñik ikustean.

—Diruak «primak» egaz ziran bitartean?

—Enaz gogoratzen, baiña benetan dirautzuet, olgetan asten zaranean ez zara ezegaz gogoratzen, jokatu bearrakin baiño, ta besterik ez.

Gauza bat esango dautzuet, neure lagun bategaz jazo jatana. Partidu bat jokatzerakoan falta bat ateratera joan nintzan ertzera, ta begira egoan lagun batek arkondaratik tira egin eustan ta deitu be bai, ta nik jaramonik bere ez. Ez nintzan konturatu, ta errira eldurik esan eustan zer egin neutsan, ta azarre egoan. Benetan, ez da bat ezegaz bere konturatzen, jenteak orroak egin arren be ez dozu ezer entsuten, ez ba da jokoa gelditzen, orduan bai.

—Orain Joxe Mari, azaldu eiskuzu zelan zaran sendian eta persona lez.

—Uste dot ori azalduteko ni ez naizala iñor. Galdetu nire amari. Baiña esango dautzuet, guk, euskaldunak garan ezkero, euskera egiten dugula beti etxean. Emen euskera asmatu eziñik ibilten dana nire arreba txikia da. Gu konturatzen ez garanean, erderaz dabil, 4 urte inguru daukaz ta, euskera egiteko esan ezik, erderaz egiten dau. Okerra da berau!

—Emazte gairik ba-dozu?

—Ez, ez olakorik ez dot oraindio pentzau, neska lagunak bakarrik.

Au esatean barre egiten dau; ea ba lortzen dozun zeure antzeko euslakdun jator bat.

Auxe da gure alkar-izketea Igartua'gaz, euskaldun zintzoa bere izakera guztian, ta beste alde batetik ostikolari ospetsuenetarikoa izateko sinismen asoa daukala ikusten da. Gure ustez, Atleti'k apur baterako laguna dauko mutil onegaz. Bere 20 urte gordiñekaz bide luzea geratzen jako aurretik.

Agur ba, Joxe Mari, ta eskerrik asko AGUR'en izenean zure alkar-izketa onen gaitik, ta zori ona izan daizula aurreranzean. Biotzez dirautzugu, euskaldun lez, bati egongo garala zure alde, euskaldunak garanez.

JOSE RAMON TA XABIER'ek



Ara emen, Kopea jokatzean Real Madril'eri sartu neutsan gola.
Orain apututa doukodan berna-azurra, orixe da.

Epaillaren 6'an. Ostikolari legez gazte zala asi zan bideak zabaltzen, ta Elorrio'ko taldeagaz jokatuten ebala, Garai entrenadore ospetsuak ikusi eban eta bai beragaz eroan bere Atleti txikira. An be laster eldu zan gaillurrera, ta 17 urtegaz Atleti nagusira jaso eban Iriondo'k, ekialako onen indarra, ta lanean biotza ipinten ikusi ebaloko. Beregaz agertu jakun Clemente. Igartua'k beraz, ez eukozan, len esan dogun lez, 17 urte baiño, alan ta be emen asi zan mutil onen benetako aurrera-bidea, geure-geure dogun Atleti'n. Urtebete igaro orduko bere lokia eskuan eukan Atleti'n, eta ez dot uste beste iñork kenduko dautsonik urte batzuetan, zauriren bat izaten ez ba'dau beintzat. Oneik izaten dira kirolari ta batez bere ostikolarien buruko miñik aundienak.

Gure eretxia emon bearra balitz Joxe Mari'tzaz, «gizon egiña» dala esango geunke berba bitan. Zintzoa ta atalik bakoa dala, auxe da guk, gazte biok, atera gendun eretxia. Beste gauza guztagarri bat da euskaldunotzat, Igartua'ari ez dautsala ospetsua izatetik aizeak burura igon, ta guk diñogu ez dautsala ezta igongo bere, orren izakera zintzoak diñosku ta. Bere azalpenak egitean oso irigia da, baiña ondo neurtuten ditu bere itzak iñor mindu ez daiten edo...

—Ondo doala uste dot. Egunokaz indartzeko jinasia egiten asi naz, erroak indartu daitezan, Oso ondo nago, ez daukat miñik.

—Noizko uste dozu kenduko dautzuela igeltzua?

—Nire ustez laster gabon, ingururako. Gero. barriro baloiagaz asi ta ea laster baten partiduren bat jokatu al dodan.

Ondo ikusten jako, nolako gogoa daukan, San Mames'en agertzeko.

Gerotxoagoan diñosku, barrezka.

—Esan dauste orain apurtuta daukaten lekutik ez dala barriro apurtuko.

—Nogaz zagoz Atleti'n laguntasunean geien alkartuta?

—Ba, errozoizko dan ezkero, neure sasoikoegaz konpontze naz ondoen, baiña danok bere oso ondo konpontzen gara. Danak dira mutil onak ta kiroltzale lez oso emonak.

—Zer diñoskuzu Ronnie'tzaz?


PARKATU GABIN!

AGUR parkaeske datorkizu, baiña batez bere nik eskatzen dautzut. Zuk dakizun lez, zuri egin neutsun alkar izketarako Nemesio Jimenez'en argazkia agertu gendun, zurea jarri bearrean.

Orain, parkaeske gatozala, zure argazkia ipinten dogu. Ba-dakit gaurko au ez dala alkar-izketea, baiña argazkia Gabino Ereño-zagana dala, bai.

Eskerrik asko Gabino, ta laster arte.

XABIER



ZUBIRI-MARDONES

ARGONTZI APAINGARRIAK

Artekale, 50 — Bilbao, 5

ERRIETAKO BARRIAK

Bermeo

Urtegi zabalak dozuz
bare-urdin batzuetan,
zeure arpegi aurrean.
Mendi sendoak daukazuz
lepo aldetik goi goian,
baketsu, aldi batzuetan.

Itxastar gizonak adi
itxasoko arrantzara,
goizian goiz jaiki da
ta urrutiko bideari,
adoretsu, oratuta,
biziaren billa doa.

Itxasoko bakardadean,
gogor, jo dozu burrukan
ur bare nai ekaitzetan.
Bizia garratz benetan
arraiñik etzan ordutan
geroko itxaropenetan.

Zuen laguna iñor ba zan
aingeru gisa gizona,
itxas-gizonei begira;
euskal Bermeo orretan
urratu eban bizia
betirako. Bai, egia.

Aragi, azur, odolik
ez eban itzi beretzat,
guztia zan lagunentzat.
Bere maitezko iturritik
opaldu zan janaritzat
gogo onez erriarentzat.

Gotzon, abade, gizona,
erri bizitzan sarturik
ezin bizi zan il barik.
Siñismena ta bakea
nai zituan soil-soillik
bere euskal abadetzatik.

Maiñu gain eta Bermeo,
zintzo izan zaitezez, beti,
egi onen ziñaldari.
Ain eder zan bere gogo,
egiak ez dau nai bizi
egizaleagaz baiño.

PAULIN

Ibaizabal aldetik

Azillaren 22'gnean, Larra'n, Euskal-Olerki Eguna ospatu zan, aspaldiko urteetan bertako kalmendar lekaide euskaltzaleak antolatzen dabena, beti lez osperik andienagaz. Euren txadon apain maitagarrian izan eban asiera, au ta inguruak notiñez beterik zirala.

Amaiketan meza abestua, ta ez dago esan bearrik, mezea txukun abestua izan zala lekaide zintzoak eta erritik datozan abesbatzeko lagunak dakiten legez. Jaupa emotaille, nor egokiago jai artan? Aita Jagoba bera izan zan, ta txonitza, itzaldia egin ebana, gipuzkoar Etxaniz'tar Nemesi apaiz euskaldazle jator kementsua, berak ain ondo dakian euskera biribillean.

Eguerdiko amabietan, olerki lanen saribanakuntza, sari onurakorrak banatuaz irabazleai Ordu bateterdietan, bazkaria, aspaldi ikusten ez diran lagunen arteko kontuesamesak, idazleen kezkak eta aurrepenak, ta akeitagaz batera Nemesio jaunaren abestiak, Aurre-Apraiz'en urteera jatorrak, bertso eta lagun guztien abesti gozoak.

Arratsaldeko lauretan, itzaldia, il-barri dogun eta iñoiz aztuko etzakun Garitaonandia'tar Gotzon euskaltzale zintzo kementsua zanaren oroigari. Jai bikaiña benetan, lekaide agurgarriak gertatu ebena! Zergaitik ez zaoalkunde aundiagorik egin ez jai goralgarri orretzaz, Aita Santi?

Basauri

Ibaizabal aldameneko erri andi ta langille au, aspaldi erdeldunduta aurkitzen da, ta euskera gitxi egiten da bertan, naita azken aldian euskaldun asko bertaratu Bizkai'ko beste errietatik, baiña, ez euskotuenak eurak. Ala ta guztiz be, ba-dira erri ontan euskaltzale zintzoak, aberria benetan maite dabenak, eta euskerak euskotarrontzat daukon garrantzia dakitenak. Orregaitik ikasten indartuten dira.

Orain urte batzuk, euskaltzale orreik eusko dantza-talde bat sortu eben, Ariz'ko eleizbarrutian, «Edurre» izenekoa, eta orain urte bat, talde orren bitartez, eta eleizaren babespean eta guraso euskaltzaleen laguntzaz eta umetxuegaitik ordainduten daben txindi urriagaz, jakiña geienak langilleen seme-alabak dira-ta, ikastola bat zabaldu eben.

Gero, ikastola ortako batzordeak dei bat egin eutsen erriko euskaltzaleai, txindi laguntza eske, estu ebizelako alde ortatik, bai dei orrek ez ebazan euskaltzaleen biotzak ikutu, naita jakin gaztedi geienak daben naia ez dakiten jatorriko izkuntza, gure Euskera maitea ikastea izan.

Aldi onatan, ikastoki bi daukoz ikastola onek, beste ainbeste andereñokon. Aste guztian, goiz ta arratsalde, ikastaroak emonaz 50 neska-mutillei, geienak euskerarik ez dakitenak. Badira gauean be, astean birritan, nagusientzako ikastaroak, onen artean be, geienak euskerarik ez dakienak, eta dirauskuenez, zaillago eginte ei-yakoe, Basauri'n entzuten ez dan euskera «batuan» izaten diralako ikasketa orreik. Zergaitik ez erabilli ikasbide errezagoa, eskuan izan ezkero? Bai! Ikastolako batzordea bost lagunek osotuten dabe, ta illero batzartuten dira umeen gurasoekin, gora-berak arakatu ta aurrerantzako erabagiak artu. Ikastola barri bat egin nai dabe, oraingo au txikerregia dabelako, ba-dabe orretarako lekua, Ariz'ko eleizeak emoten dautsena, baiña txindirik ez. Non dira Basauri'ko txindidun euzkotarrak euskaragaitik zerbait geiago ez egiteko?

Laster datorkiguzan Azti-bakaldun egunetan, jostaillu bardin antzekoak (erabagi bikaiña bera) erosi nai dabez ume guztientzat, eusko-ikastolako ume danentzat.

Urrillaren azkenean urrezko ezteguak ospatu ebezan Elezkano'tar Matai ta Ibarretxe'tar Dunixe senar-emazte euskaltzale zintzoak. Zorionak, adizkide on biori, ea ikatzpitxizkoak eta geiago ospatutera elduten zareen!

Adimen-atzeratuei laguntzeko txindia batutearren, eusko giroko jai bat; soiñu, dantza, abesti ta abar ospatu zan Lotazillaren 8gnean. bertako areto baten, ta erriko Udal'ekoen babespean gertatuta. Ea ba, noz-edonoz gure errietako Udal'ak euzko giroko zerbait egiten daben.

Etxebarri

Aspaldian sortua zan emen «Beti-Batera» izeneko euskal erti kirol ta jakintza bazkun bat, baiña euren araudia ez eukelako legepean, ezin eben gauza andirik egin. Orain bai, agintariak ontzat artu dautse ori, ta kementsu asi dira zerbait euskalerri-jakintzaz egiten. Lerro oneik argia ikusten dabeneko jai politak ospatuak izango dira. Aurrera etxebarritar gazte jatorrak! danontzat dago zeregiña gure lurraldean-ta.

Galdakano

Azkenengo urte ontan darabillen etxegintza dala-ta, txaide barri asko sortu da erri ontan, ta izen barrien bearrean zan euretariko asko, edo geienak. Orretara izanik, ipiñi dautse ainbateri, ez dakigu zenbateri, ez dogulako dana ikusteko erarik izan, baiña, ikusi doguzan batzukin ez gara naigabetu baiño egin. Ez Galdakano'k ez Euskalerria'k ezetariko zorrik eztautzen notiñen izenak ipiñi dautsezelako, bateri baiño geiagori. Gomutagarri diran izen asko eukita errian eta inguruetan. Ipiñi izan dabezan izen guztiak jakiten doguzanean, bear bada, zerbait geiago idatziko dogu.

Areatza-Arratia'ko artzain izarlariagaz egon gara, ta Gabon aurretxoan asita guztiz negu txar-txarra izengo ei-dogu aurten diño. Igarriko ete dau, Orue'tar Jon orrek? Oba ez!

BASA-JAUN

Arratia

AGUR'en irakurle zintzoak oraingo onegatik bere lan aguratuakaz, zaartuakaz jokatzen dodala esango dabe, ta egia danik iñork ezin ukatu.

Egia da, bai-ta, neu bakarrik enaizala atzerakuntz onen errudun. Beste aldizkari batera bialdu neban, garaiz; egiaren eztena baiña zorrotza izanik, etzan izan argitaratua, ta emen nator gabonsari garratz ozpindun onegaz.

Durango'n izan zan euskal-idazti-diskoen azokari azalpenak egiteko asmorik eztot, beartuta nago baiña, odolak agintzen daustan ezkero, Durango'n bertan egun aretan izan neban jardunalditxoa, barriketaldia azaltzera.

Ikusmira egiten ari nintzanean, Anaitasuna'ri azal-ikusketa egiten ziarduen bi gaztegana aurreratu nintzan, Agur eta Anaitasuna eskuan nituala. Eta naizen baiño be kokolo-mokoloago aurkezturik, H'ren eta H'rik ezaren zergaitia arren eskatu neuntseen.

Lertu ta zatitu ziran odei balzak. Idigi ziran ur zikin-iturriak, eta, oxiñaren ondoa, naiz-ta zikiñez betea izan, iñoizkorik garbien ikusi neban. Eta ona emen nire itaun eta eskariai emondako erantzunak:

—Erria orain arte, Erroma'ren otsain izan da, gotzaien morroi ta eleiztutu. Erreboluzio progresista baten bearra izan dogu, ta ikurrin bezela H jaso ta zori onean besarkatu genduan.

—H ori zori oneko ta garrantzizkoa dalarik, zuok eztozue oguzten, esaten H'rik.

—Begiz ikusteko asmatua dogularik, ez arduratu entzun ezagatik.

—Zeintzuk eta noraiñokoak izango dira progresoaren bideak?

—Abando'tik Sukarrieta'ra baiño zabalagoak, mugarik gabeak.

—Eta gure Erri gaxo onen etorkizuna zuria ala baltza izango ete da?

—Etzaitez larritu. Erria ta H'a iñoiz bere eztira galduko, «museorik» izango dan arte beintzat.

—Orren gazte ta burrukarako ezi dozuen atxe ori, museora begira jarritako ikurra, bear-bearrezkoa al da euskeraren batasunerako?

—Ez, eztogu bearrezkoa. Batasun-ikurra H, naiz-ta erri banatzallea izan, mito zar naskagarri ugariegiak bastertzeko bere osakirik onena dogu.

Kokolo-mokolo onek indarrik ezeukan geiago entzuteko, ok egin eban entzundakoakaz eta gibela erreta etxeratu zan erabagi sendo-sendo onekin: Ez dot irakurriko «H» dun irakurgairik mugaz emendikoek egiñak danean. Eta zuk, irakurle, azterketa sakon-epetsua egin ondoren, bialdu AGUR ontara zeure aburu edo eretxiak.

Urtebarri zoriontsua guztioi.

LANDAJUELA'TAR A.

Bilbao

Gure Bilbo'ko txoko zarrekoak —zazpi kale t'abar— euren bereiztasuna galdu barik barriztatzeko itxura-antza ez eze alegiñ bizi-biziak bere ba dagiezala edonork dakuz egunokaz!

Biotz-ondo barnea zirrarazota lez dabe. Nola ez ikusirik Bilbo'ko alde barria bete dala ez nolanaiko salgaitokiz, barri, garai ta luze-zabalez baiño?

Or dozue «El Corte Inglés» esatebaterako, berreun dendaren balioaz. Onen ondoren, beste banaka batzuk be antzeko.

Zetan daragoioe ta zer dagie, beraz, sal-leiaketan bizirik ta gizonki jardureko txoko zarreko salostetxeak?

Lenen ta bein batu ei dira salgai-toki garrantzidun guztiak (milla or-or dirala diñoe) euren zabal-bide lanetan.

Ta or dakusuz gauza barriak asmatzen gaurkotuta dabiltzala. Orain-orain-tsu Londres'erako ostera-txartelak eurenean erosten dabezenai banantzen asi dira.

Euren dendak orobat loteri-txartel banatzailleak ei dira Gabonetarako batez bere bertan erosten dabezenentzat.

Zintzilikariz ta apainduraz berebat jantziko dabez enparantz-barri, Korreo ta Bidebarrieta kaleak, Josu umearen Yayotz-eguna ta urte-barriaren asiera alik ondoren ospatuteko.

Leiaketa gozoa nunbait, guztioen onerako bada!

Euren artean bat edo beste ere aurkitu oi dira sukursal edo etxe-orde barriak ipiñi edo ipintzeko asmotan ibili dabilzanak Bilbo'ko ensanche edo zabalgunean. Ots: Urceley ospetsua, Guijarro t'abar. Gauz egokia atan be al izan ezkero.

Besteak, alde barrikoak berez aurra doazela-ta, zuek bere, txoko zarrkoak, ez zaiteze kikildu ez loakartu. Ekostera biziro aspertu gabe ta, au bai ondautsuedala zinziñez: Al dozuenean eukeraz mintzatu, zuen errikoi euskereak euskaldunak zeuen artean Bilbo barria baiño ugariagoak diralako, nik uste.

ARREGI'TAR JOSU

Usansolo

Erriko jaiak

Ander Donea. Zer ete-dauka izen onek Usansolo'ko auzotarrentzat? Erriko jaiak ze ezkutapen, ze sorgintasun ete-daukie, gu biotzak ain alai aurkitzeko, areik eltzen ranean?

Nire ustez, gure oitura zarregatik da. ta tamalez oitura oneik galtzen joan. Gaonetan Usansolo'tar guztiak, nai errian atzerrian izan, Ander Donearen egunean, ren buruak goratu ta Erriaren deiari eratzuten dautsee. Zenbat aurpegi zar jai ontan ikusten diran. Zenbat itaunketa antxiñalagunak ikusiaz!

Eta umeentzat? Zer dira Jaiak eurtzat? Orrein irudiak ikusita, jai guztiak baiño atsegin aundiagoa artzen dot. Ezer Etorri, ea, ikustaldi bat egin dagiogun gira ara, txurrogintzako txabolara. Iru lau aurtxo, adurra darioela, txurro-gilanola lan egiten daben begira. Otzara aun bat baleukie, txurroz beterik... Goazen ontximist-berebillak dagoazan tokira. Ez zuez ikusten euren sur gorrituak agirian bon illean gagoz) zelango ametsetan dagon Fangio bera be, txiki utziko leukee, naikorik balebe. Ta, beste areik, tiobibegazka dabiltzanak? Zer ete-dabil euren txikien barruan? Jokatuko neuke, Gaga ta onen antzekoak, ez dirala iñoiz igon aurtxook goratu diran aiña, euren amatan, tiobibo orreitan!

Abestiak

Ta, Aurtxo-abeslarien Txapelketan? ña au aparteko gauzea da. Goazen ba ara aurtengo jaiekaz. Usansolo'ko gaztaantolatuak izan dira. Eurentzat txalorik roeñak, jaiak daukezan arazo guztiak eskuetan artu dabezalako. Irallaren 29 jaiari asierea emon jakon. Euskaltzalee ez egoan ezer, Ander Donearen arratsa rarte, 30'an. Baiña zenbat poztu giñan arratsalde atan. Ikastola'ko enparantzean, ta gazte, alkartu giñan, aurtxoeri euren tiak entzuteko asmoan. Ta, ze sariketa Abeslari guztiak lau edo bostetik amabterartekoak ziran.

Epai-maikoentzat ez zan izan erreza riketa au. Txalogarria bazan be, lau aurtxo bat eusko-abeslari ikustea, kaxkotxoagoak, euren nortasuna emoten abestiari. Baiña, norbaitek izan bear lenengo, ta onelaxe banatu ziran sariak: Mari Jose Arana; 2, Jesus Bengoetxea; Mari Jesus Barrena; 4, Idoia Barrena; 5, reia Uribiarte; 6, Alicia Legarda; 7, Sesma...

Eskari bat

Iñor mindu barik gelditu dagian, sariketarako, gure buruerak azalduaz pelketa zoragarri au gorengo maillara daiten, alegindu bear dogu. Len esan lez, ez zan erreza izan txapelketa ori tutea, baiña epailleen iritzia ontzat artu nola lan egin? Orreik be euren utsak dabez, gizasemeak diran ezkero, baiña egon, euren iritzia biotzekoa izan zala datorran urteko Aurtxo-abeslarien Sari

Bigarren jaiak

Urrengo jai-eguna, Gabonillaren Bezperan, Firestone'ko abes-taldeak gularriak laztadu ebazan, euskal abesti kaz, urrengo egunean izango ziranen gerbat lez, ta pozezko aupadak eta irrin Bermeo'ko aurtxo txistularien biribileta eres-aldian. Arein kemena txistua gure biotzetaraño eldu zan. Jarraitu bermeotarrok!

Korrikolariak be izan ziran egun baiña onein gora-berak kiroltzaleak ko dautzuez. Usansolo'ko gaztedi ekin eta jarrai bide orretan, gure aititamak ikusi dagien gaztedi kementsu kalzaleak jarraituko dautsela lur maite gaiñean!

ERRIETAKO BARRIAK

Urrezko ezteguak

Zenarruzabeitia'tarrak zoriontsu dagoz. Patxi'k eta Anastasi'k euren urrezko ezteguak izan ditue, igaro dan illean. Ori zala ta, meza eder bat izan genduan Usansolo'n. Don Bitor'en izketaldian, ainbat ezti-negar anpulu. Ba-daki, jakin be, gure eleizburuak, bere Iurreta'ko euskera gozoan, erriaren biotzak kilikatuten.

Bazkari aurrean, mezako abeslariak, Patxi ta Anastasi'gaz alkartu giñan, barriketaldixo bat egiteko. Zorionak biori! baita zuen seme ta errein euskaldun zintzo diran Sabin eta Mari-Asune'ri!

ATXUTEGI'TAR JULENE

Bakio

San Pelayo, erri txiki bat da. Txikerra zaillez ta gizonez, baiña abade gogorra ta zurra dauko.

Gaur da eguna, iñoiz ez dana entzun, berak esanda, gauza garrantzizkorik itzaldietan; alde batetik dirua eskatzen, eta bestetik borondate oneko gizonak nekatzen.

Ez dakit nik zergaitik beti egon bear daben dirua itxaroten. Lenengo, kotxe bi daukoz berak, eta onetan iñork baiño geiago; gero, eleiza bi bere ardurapean, ta ez dot us'e iñork argitasunik eskatzen dautsonik. Danok dakigu, dirue errez batutako, eleizak dirala, orra doaz ba Bakio'ra datozan udalariak.

Zenbat abade egongo ete dira euren bizitzan laguntasun gitxiago daukenak! Alan uste dot, ta laister abade asko izango dirala be bai, gauza onek entzunda.

Abade au dala ta ez dala, eleiztar asko dagoz aspaldi onetan mezara joan barik. Berak, erriaren toki bi edo iru daukoz, ta erriko gazteak ez dauke bat bere. Euren ikastolara joateko asko ibilli bear dabe. Zergaitik ez dauke bertan, baserriko umeak, ikastola txiki bat?

Parkatu dagidala gizon onek ez dan gauzarik esan badot, baiña bildur naz ez nabillela oker.

XABIER

Itxasotik

ARRANTZALE-BIOTZAK NEGARREZ

Euskalerri guztian dakite euskotar arrantzaleak euskaldun gerana, Euskalerria'ren sortukeratik, eta geure artean gizon ospetsurik bada, euskalduna dala, maite izaten dogu.

Orrexegaitik ezin naz ixilik gelditu' aitatu barik batez bere, Berme'on galdu dogun euskerazale porrokatua, Aita Gotzon, nik esan bekit, dakiten euskera geiena berak irakatsitakoa dala, beragaitik asi nintzan idazten, lenengo Anaitasuna'n eta orain Agur'en, eukan jakitura guztia itzartuta egoten zan ordu guztietan adierazoten eban.

Bere betiko itzak onexek izaten ziran «Gutxi garalako ezin gara gelditu. Daukagun guztia emon bearko dogu zerbait lortu nai badogu. Gizonen bizitza ludi onetan aldi bat bakarrik da-ta».

Aita Gotzon'ek bere aldia ondo bete dabela uste dot, maitasunez eta zintzotasunez. Apar bat utzi du gure artean lagarorako eta batez be ondo ezagutu gendunontzako.

Bere ikasle artean naiko umezurtz utzi gaitu. Bearko dogu bere ikasketakaz ekin eta jarrai, nai badogu bete berak utzi dauskun utzune aundi ori!

Canarias aldetik gagozan Bermeo'tar arrantzale guztien aldetik, agur bero-bero bat geure irakasle izan zanari.

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Meñakabarrena

(erri txikietako kezkak)

Irailleko AGUR aldizkarian eta «Zeruko Argiaren» 393'garren zenbakian, nire idazlan bat agertu zan «Meñakabarrena 'erri txikietako kezkak)» izenburuz.

Lantxo orretan ez nituan neure kezkak bakarrik azaltzen, ni jaio nintzan auzune polit aretan jasotako kezkak ziran batez be. Kezka orreek, ari luzea dakarre atzetik ,Urriñetik etozan. Gogorik onenaz, ondo-ez orren sustraira nai izan neban jo, eta bizi-biziro pekatu ori salatu. Esatekoak, nire adaz-lantxo aretan esan nituan baiña esan ba'nituan esan nituan. Gero izan dira gerokoak! Nire idaz-lan arek batzuengan puzlak atera ditu eta orain olatu gogorrak datoz orroaka niregana ntz, idaz-lan orretan emondako pausuetan, atze-atzeka bazterreraiño eroan gura nabelarik. Orain, ni naz gaiztoa eta pekataria, gauzak leengo tokian utzi ez ditudalako!

Batzuk, oso gogo onez zuzendu dira niregana eta Meñakabarrena'ko Lekaimeen bizkar utzi neban salakuntza garratza beste idaz-lantxo batez gozatzeko ta osotzeko eskatzen eusten. Ala egitekotan geratu nintzan, eta oso pozik ain zuzen. Era batera edo begirada baten dana ikustea zailla izaten da. Leenengo begiradan, alderdi illuna bakarrik arakatu ei dot; ea bigarrenean, beste arpegi ederra be ikusten dodan.

Nik garratz idatzi ba'neban, besteren bat dator geroago «triunfalismoz» gaiñezka eta zer-ikusirik ez daben gauzak naastatuz, aitakeri-kutsuz idazten. Akatzik txikienik be ez dau aitatzen!... Orrela orratza ez da berari dagokion erdian geratu. Mundu onetan sarritan jazoten dana: Bat illeta joten eta beste bat albotik, *Kukurruku* egiten, toki berean! Orrela egia non dagoan ez da errez jakiten.

Zer jazoten da Meñakabarrena'ko lekaimeekin? Sollube mendiaren egalean 11 lekaime bizi dira. Iru euskaldun jatorrak eta ziur-ziur euren izkuntza maite dabenak. Beste bi edo, euskera apur bat aitzen dabenak. Enparauak, erdeldunak. 13 urte daroez gutxi-gora-beera Meñakabarrena'ko auzunean.

Teresa Deunaren alaba oneek, lan ederrik asko egin dabenik, ezin daikegu ukatu. Orrelako erri ta auzune txikiak bertan-beera utziak izatea gertatzen da sarritan. Biztanlerik bagako baserriak sasiz eta untzurriz josiak, basoak bere mendean artuak, nok ez ditu ikusi? Orrela amaika erri txiki, euren buruak jasoteko indar bagarik; euren bizia zaindu-eziñik; euren buruak gaztetu eta errigintza egoki baterako laguntza-eske. Ainbeste bear-izan, ainbeste utsune bete bearreko ta salbagille baten zain. Laterriak (estaduak) orretarako errietan izendaturik dituan «Salbagilletzako» orreek, ez ei dira salbagilleak-eta.

Orrela aurkitzen zan Meñakabarrena'ko auzunea be. Arazo batzuk, zorionez, erantzun jator eta zintzo bat artu dabe eta gau bide onetik doaz eta konpontzeko abiaduran. Ona emen konpondu diran arazo batzuk: Leen bide-aldi luzea egin bear izaten zan Meñakabarrena'ko baserrietatik eskolara ta elizara, Meñaka'raiño joateko. Neguko eurite ta edurtzetan, ume gizajoentzat ez zan giro izaten araiño joatea; baiña zerbait ikastekotan, joan egin bear! Orain erreztasun eta aurrerapen aundiak lortu dira. Amaitu ziran leengo joan-etorri luzeak, bideko zaparrada ta eguraldiaren asarreak jasan bearrak. Meñakabarrena'ko auzunean bertan egokitu dabe ikastetxe eder eta txukun bat. Antxe batzen dira larogeiren bat neskato-mutiko leenengo ikasketak egiteko; biar-etziko gizon eta emakume izateko gertatzen. Jainko-Erria batzeko, elizkizunak eta eukaristi-batzarrak ospatzeko be, bertan dago eliza polit bat gaurko egituran taiutua, aukera-aukeran eta guztientzat zabalik.

Diru-aldetik, noren bizkar jausi da orrelako etxegintza baten zama (pixua)? Noren eskua agiri da or? Ez auzuneko sendi guztiena, entzun dodan lez, geienak zeozertxo emon ba'dabe ere. Orrelako etxegintza batek diru-aldetik ekarri oi dituan ondorenik latzenak, lekaimeen gain jausi dira, laguntza apur bat jaso ba'dabe ere. Egintza onek, gaur autortuko dot bai, Lekaimeen alde itz egiten dau, eta zoli ta indartsu itz egin be.

Orduan, zergaitik nire leengo salakuntza garratza? Gai guzti-guztiak era batera ikusi ta erabiltzerik ez dago. Orduan euskeraren gaia artu ta aztertu neban eta puntu orretan aurkitu nituan akatzak salatu. Baiña zergaitik moja koittada batzuekaitik...? Koittauak eta errukarriak geu gara gu, geurea obeto zaintzen ez dakigun bitartean. Gure egoerea zein dan ikusita, sentikorkerietan ba'gabiltz, ez gara urriñera elduko. Idazlan aretan, neuk neurez ikusitakoak eta ondo be ondo nekianari oratu neutsan. Au al da nire pekatua? Gaur be, leengo-leengoan nago ba, eta leen baiño sendoago bear-bada.

Argitasun batzuk

Erri baten bear-izanak era askotakoak dira, baiña askok ez dauke euren bearizanen ezaguerarik. Ikusi ta ikutzen diranak izan ezik, beste premiñak ez ditue aintzakotzat artzen. Ementxe dago okerra. Diru-arazoak ondo joan, osasuna, etxe on bat bizitzeko eta auzunean, umeentzat eskola bat eta guztientzako eliza bat izan ezkero, beste arazorik ez al dago Euskalerrian gaur? Euskalerriko baztertxo baten bizitzera datorren mojatalde batek, bete dau Euskalerriagazkoa, auzunearentzat eliza bat eta eskola bat egitean? Ori al da beste akatz eta pekatu guztien osagarri? Ori egin dabelako, beste gauza guztietan be, akatz bakoak eta ikutu-eziñak ete dira? Zergaitik naastatu bear dira, zer ikusirik ez daben gauza bi? Leen aitatu dodan puntu orretan, oso jator jokatu dabe erriaren aurrerapenerako. Erriari muin-muiñean ikutzen dautsan euskera arazo onetan ostera, *ez eta ez*. Bata-bestearekin naastatueziñeko erriaren premiña (bear-izan) bi dira. Zeuk neurtu bataren eta bestearen balioa.

Ango irakaslearen aurka, nire lumatik ez da letra-erdirik sortu, bestera baiño. Banekian aspalditik zintzoa zana ta umeen eziketa zer dan ondo dakiana. Baiña «maistra txeratsu, aparteko langille, euskaldun eta eusklzale» orrek, bere jatortasun eta doai orreek, mojatxoai ete dautsez zor?... Maistra onen euskalzaletasunak, bete ta osotu bear al dau lekaimeak euskera-arloan izten daben utsunea?

«Kili-kili» rako lanak egiten dituela umeak? Ia euskalerri guztian egiten ditue. Ala «Kili-kili» ren osabeak ango umetxoen artean egiten dauan lana be, mojakaitik da? Oraindiño, zorionez, euskera bizi-bizirik dago Meñakabarrena'n, baiña ez mojak *an dagozelako*, mojak *an egon arren baiño*. Ba dira beste batzuk edo besteren bat, bere ames mamiña umetxuengan euskera indartzea dauana. Berari esker, geien bat, emoten da an ain zintzo kristau-ikasbidea euskeraz eta oraiñarte egin diran euskerazko sariketatan, berari esker ibilli dira umeak gorengo mailletan.

Nire iritzia gora-beera onetan

Nire ustez, ez dot gai onetan ezer asmatzen. Elizaren oraingo irakatsiak jarraitzen alegintzen naiz bakarrik. Elizak kanpotik datozenak, biotzak zabalik eta maitasunez beterik artzeko eskatzen dausku, baiña kanpotik datozen orrei be, bete-bear astunak ezarten dautsez. Bertakotu ta erriaren mamin eginda geratzea, batez be. Gure apaizak, mixiolari bezela atzerrira joan bear dabenean, bertakotutzea, bertako izkuntza ta oiturekaz jantzi bear izatea, ondo ikusten dogu danok. India'ra, Japon'era naiz Afrika'ra joan bear danean, orduan nai-ta-naizko, bearrezko ikusten dogu bertako izkuntza ikastea. Euskalerrira lekaime, apaizak eta abar, *kristau-lana* egitera datozenean, zergaitik ez da beste orrenbeste eskatu bear? Guk euskaldunok, noiz galdu dogu meza santua ta Jainkoaren itza Euskalerri-euskalerrian, geure izkuntzan entzuteko eskubidea? Zergaitik eskubide orreek guri ukatu ta beste batzuri ez? Guk zer egin dogu eskubide orreek galtzeko? Erri txiki bat garela? Txikia izateagaitik eskubideak galtzen al dira? España'ko Estaduak agintzen dauala emen eta legezko izkuntza (ofiziala) erdera dala? Zertan geratzen gara; Kristiñauok, Jainkoak ipiñitako berezko legea onartzen dogu ala Estadu baten bada-ezpadako legiai emon bear dautsegu leenengo maillea?

Elizak tokian tokiko egin bear dau bere burua; dabillen lekuan bertakotu bearra dau. Ta Eliza diñodanean, bardin Eliz-lana edo kristau-lana egitera beste erri batera datorren kristau-alkargo batek be. «Laterri barri batera doanak, arduraz artu bei, ez toki aretako izkuntza ikastea bakarrik, baita apalapalik serbitzera doan erri aren berez-berezko nortasuna (sikolojia) ta sozioloji aregaz bat egin, Paulo Deunaren bidea jarraituz: «Izan be, neure eskuko izanik, guztien morroi egin naz, albait geienak irabazi dagidazan. Eta Judarrakaz Judar egin naz... Guztia guztientzat egin naz, guztiak zeruratu daitezan...» (1 Kor. IX, 19-20) (Preb. Ord. 10).

Nik Meñakabarrena'ra egindako ostera batzutan ikusitakoa idatzi neban bakarrik, batez be liturjian jazoten zana. Egunero mezatara joaten ziran emakumeak eta abar, baztertuak ikusten nituan meza a astegunetan erderaz zalako. Nik neuk oso minduta urteten neban andik; eta ez nik bakarrik, mezatara joaten ziran besteak be bai, euren geroko esaeretan agertzen ebenez. Au egiegia da. Beti uste izan dot, Meñakabarrena'n mojak ez dabela erderaz mezarik izateko eskubiderik, eliza erriarentzat zabalik dauken bitartean. Goizetik gabera euskaldundutea, ba-dakit eziña dala. Baiña 12 urte daroez gero! Beste gauza asko aitatu neinkez, zapatu Santuko elizkizunean jazo zana ta abar.

Euskalerriarekin zorretan gagoz moja ta prailloek. Jainkoa serbitzeko asmotan gabiltzanok, zergaitik ez dogu maitatzen geure erria...

BARAIAZARRA'TAR LUIS

Tolosa

Agur, Gotzon

Orexa'n, ta «Orixe» ri omenaldia egin zan egunez, ezagutu zindudan. Izketaldi laburra. Baiñan naikoa zure oroitzetan irauteko. Zuregandik orrenbeste itxaroten genuanean joan ziñan, euskeraren kaltetan.

Agur, Garitaonandia'tar Gotzon! Jaunak gorde zaitzala bere altzoan!

«Orixe»

Orain goietan edurra eta beetan edur-txirristatzailleak beren tramankuluak gertutzen ari diranean, atsegin aundiena da berari irakurtzea sukaldearen beroan. Alde guztietatik euskera-euskera berea. Axular'ek eta gizaldikoak kare ederrez palakada bat, erderaz kutsatutako ondarrez bi. Euskerari etxea egiterakoan «Orixe»k emandako «materiala» artuko nuke.

Egun aundirarte

Zer besterik esango ba On Mikel Apeztegia jaunari? Tolosa'n On Mikel aitatzen zanean, ez zuan argitu bearrik izaten. Apeztegia apaiza zan, eta ez nolanaiko apaiza. Bidebatez apaiz-bete ta gizon-oso. Gizon ta apaiz, gure gotzaiak eleizkizun itzaldian gai izan zuan bezela. Apaiz batek ez dezake merezimendu geiagorik ludi onetan, ez eta txartel obeagorik zeruan sarrera zabala izateko.

Amabost apaizek Gotzaia buru zutela agurmeza egin zioten, erriarekin batera. Organistak ere, gure adiskide Mokoroa'tar Iñaki'k ere organoaz jo zion ernagarri izan zitzaiguna, berak eratutako «Carillon de Lourdes» eresia, gotzaia ere geldirik gelditu baizan zerutik zetorrela zirudian doñu ura ixildu arteño. Iñaki'ren biotza eta eskuak!

Gizon ta apaiz, bai. Euskaltzale purrukatua ere izan zan. Gure arazoak bere baitan zuten kabi-leku. Eta biotzdun ere ba-zan langille ta beartsuentzat. Nabaitua bai-genuan guda aurretik, eusko langillei itzaldi sail bat ematean, bere euskera gozoaz eta bere jakinduri ta errestasunaz jorratua.

Apaiz eta gizon. Zer esan genezaio geiagorik apaiz bati?

Nere agur samiña Tabira'n apaiz izan zan, gaur emen, bere anai On Franzisko'ri.

Irakasle ta ikasleak

Irakasleaz batu giñan otoitzen bidez, bere ilurteurrena zala-ta Azilla'k 29'gn.oroitz meza batean. San Frantzizko eleizak ikusi zuan oraindik badaudela zaarrek eman ziguten ikasbidea eskertzen dakietenak, adin guzitakoak. Irakasle, jarrai zerutik maite zenuan erriari irakasten!

Berriz ere

Aurten ere, bai omen dute Tolosa'n «Gran Desfile Euskaro» eratzeko asmoa. Mutillak, xauxa biltzen dan tokian ba-datoztela euliak kurrunkan eztitara bezela! Aurten gogoratuko ote dira euskal erakuntzetarako diruz?

Bertsotan

«Ez da burgesiarik,
ez burokraziarik...»
euskerari neurria
artuko dionik.
Gizon aundiak ere
ikusten ditut nik
bere tokian «atxe»
ezin ipiñirik.

«UXOLA»

ERREGEN IPUIÑA

Amonatxoa, amuma atsegin-bitsetan egoan, bere illobatxoak gaztaiña-zimel erreak jaten ikusiaz. Ala ta bere, amuma zerbait artega egoala igarten zan. Zergaitik? Etxetik at, landan, edur-ekaitzaren txistu-zorrotzak arduratzen ebalako.

Onetan, «Txiki», etxeko artzain-txakurraren zaunka zolia entzun zan. Au, au!

—Nasaitu naz oraintxe! —esan eban pozez, amumak—. Artaldea esparruan dago, etxean. Ta... nasaitu nazalako ta pozpozik nagolako, gaurko egunari yagokon ipuin polit bat kontauko dautsuet.

Umeok, inguratu eben amuma, lurrean jarrita, begiak ernai ta ao-zabal. «Txiki» artzain-txakur azkarrak idiki eban sukaldeko atea bere aurreko eskutxoekaz. Mingain leunagaz arpegia miazkatuz agurtu ebazan ume guztiak, eta ondoren, bera be etxeko bat geiago bailitzan, bere ipurdi-ganean leku egiñik, entzuten jarri.

Amumak, giro maite artan, alan asi eban ipuiña:

Erregen eguna zan.

Sorkaldeko sala edo areto eder baten, geu gaur ementxe gagozan lez, batuta egozan Meltxor, Gaspar eta Baltasar iru erregeak. Eurekin egoan baita be, Pellotxu, Meltxor'en semetxoa; amar urteko mutikotxoa.

Barriketaldi gozoa erabillien euren aoetan, Jesus jaio zanean Belen'era egin eutsoen bisitatzaz. Erodes'ekin izan eben alkar-izketa kezkatsua; zeru-izarrak opaldu eutsoen laguntza, abar eta abar gogoratuaz.

«Ogetamar urte dira guzti oneik jazo zirala —esan eban Meltxor'ek—. Ogetamar urte dira Jesus ikusi ez dogula. An ibiliko da Jesus, Jerusalen'go inguruetan Bere egi ederrak zabaltzen. Bere zerutar dotriña eztitsuarekin inguru guztiak gozarazten.

Eta... zer eretxiko zeuskioe beste bisita bat egingo ba'geunskio BERARI?».

—Ondo baiño obeto! —erantzu eben danak ao batez.

—Entzun baiña —esanaz, jarraitu eban Meltxor'ek—. Ni neu, zartuta ta makurtuta nago. Erdi itsu be bai; beraz, tamalez, ni ezin joan izango naz. Baiña nire ordez, Pellotxu joango da, ta berorrek eroango dautsaz Jesus'eri, nere agur eta erregaloak.

—Baiña Meltxor! —oartu eutsen beste bi erregeak—. Pellotxu gaztetxoa da alako bide luzeak egiteko! Bide aztun orrein nekeak ezin jasango dauz! Asmo polita dan arren, kendu egizu asmo ori burutik!

—Beste toki baterako, naiz beste arazo baterako balitz —jardetsi eban Meltxor'ek—, ez neuskio aginduko ordezkaritza ori; ez neuskio iñolako arriskurik ezarriko; baiña Jesus'engana joateko asmoak diranean, kezka guztiak udabarriko intzetan biurtzen dira. Jesus'engana joateko bai!, neure gogoa ta baimena dauz. Ziur naz, Berak lagunduko dautsola bide guztian.

Ziurtasun ori dodalarik —amaitu eban bere jarduna Meltxor'ek—, biar bertan urtengo zarie Jerusalen aldera, ganbelu ganetan, orain ogetamar urte dirala, Belen'era urten giñan lez.

* * *

Urrengo goizean, an urten ziran Gaspar, Baltasar eta Pellotxu, euren ganbelu-ganetan, Jesus ikusteko egarri biziarekin.

Eguna joan eta eguna etorri. Egunaz eguzki beroari arpegi emonaz, eta gabaz ozkirri ta illunari; ibili ta ibili, nekeak atsegin bailitzazan, eldu ziran alako gaberdi batez, Jerusalen'era.

Sartu ziran ostatu batean, euren soin nekatueri biar eben atsedena emon nairik. Afaldu eben gogoz, eta bereala loratatu ziran. Oean sartu ziraneko, Gaspar eta Baltasar, zarrak izan be-ta, loaren besoetan murgildu ziran.

Pellotxu'k baiña, ezin eban lorik egin. Jesus len bait len ikusteko azkureak begiak argitzen eutsozan, eta ixilka-mixilka oetik jaiki ta... beko sukaldera joan zan.

Ostataria an aurkitu eban eta Pellotxu'k bai azkar itandu be:

—Ostatari jauna: bai al dakizu, Jesus gure Jaun eta Jaungoikoa nun aurkitu negiken?

—Jesus zerutarra aurkin nai ba'dozu joan zaite uribarreneko Jordan ibai zabalera ta antxe ikusiko dozu. Gabero antxe jarduten dau arek erriari zerura bidea erakusten. Baiña ez dozu errez izango Beragana urreratzen. Millakak eta Millakak entzule izaten dira an, eta ez dautsue laketuko aurrera egiten.

Ostatariaren oarra gora-bera, geiago barik, urten zan Pellotxu, bakar-bakarrik ostatutik, eta bere oiñak kalean-bera ibairantz zuzenduz, zubi batera eldu zan. Ango jendetza! nork aurrera jarraitu? Ez zan errez!

Ukaondoak batera ta bestera jokatuz, zabaldu eban bidea ta eldu zan zubiaren erdi-erdira. Zubi-ganetik begitu eban ibaia ta... ikuspegi zoragarria!

Antxe egoan Jesus, illargi argitan, ibaiaren erdi-erdian, txalupa baten ganean besoak zabal, mintzo gozoarekin erriari Bere dotriña zerutarra ezarten.

Guzti au ikusi ebalarik, Pellotxu'ri pozak ganez egin eutson, eta oiuka asi:

—Jesuus, Jesuuuuus!!!

—Kaaixio Pellotxu! —erantzun eutsan Jesus'ek —nundik nora jo dozu zuk ona?

—Baiña Jauna...! nola daki Berorrek ni nor nazan, egundo ikusi ez banau?

—Benturaz ez al dozu zuk, Meltxor nire adiskide zarraren arpegi peto-petua Ator ona Pellotxu! Ator azkar Nire besoetara!

Pellotxu, zoratu bearrean, arrapaladan, jatxi zan ibaira, jendetza arek arrigarriz bidea egiñik. Ibai-ertzera ta ango ur-sakona ikusirik, bapatian lotu zan. Eta Jesus'ek esan eutsan: «Ez adi uraren bildur izan, Pellotxu! Etorri zaitez kezkarik bage, ez zara ittokota».

Eta Pellotxu, uraren ganean txipli-txapla joan zan leorra bailitzan, Jesus'en besoetara, jendetza osoa mututzeraiño arritzen zalarik.

—Atoz ona, Pellotxu! —esan eutsan Jesus'ek—. Atoz ona, txiki nintzala zure aitak emon eustan besarkadea biurtu nai dautsut-eta!

Pellotxu'k Jesus'en besoetan nabaitu eban zoriona ez da errez azaltzea.

Jesus'ek Bere besoetatik askatu ebanean esan eutson:

—Ta... zer dakaztazu besape orretan?

—Nere aitak Berorrentzat emon daustazan erregaluak eta... neureak be bai.

—Nik ez dot iñoren erregalorik artzeko oiturarik, baiña zeuk dakastazuzalako, ontzat artzen dodaz. Eta orain, zuere bisita onen eskergarritzat eta gomutagarritzat zerbait eskiñi nai dautsut Neuk be.

—Baiña Jauna, zertarako neri ezer emon, dan-dana Berorrena ba'da; mundu osoa Berorrena ba'da?

Ederto erantzun dozu Pellotxu. Ezagun da bai, Meltxor nire adiskide begikoaren semea zarala.

Zeure erregalu ta bisita onen ordaintzat, mundu onetan dan lurralderik ederrena, txukunena, zeuretzat emongo dautsut.

Lurralde orrek zelai zabalak, mendi jasoak eta itxaspaster zoragarriak izango dauz.

Zelaietan, guztitariko janariak burutuko dira, erria gozaro bazka dedin.

Mendietan, zugadi aundi ta apaiñak; artalde txuri bikaiñak; abere etxekoi ta basatiak be izango dira. Baita be egaztiak.

Itxas-ertzetan barriz... arrain mota guztiak arrantzalien pozgarritzat.

Itxastar, menditar ta enparauentzat, jolasak jolas be izango. Dantza liliragarriak; eresi gozo, leun eta bigun-bigunak be bai.

An ez da ezertxo eskaz izango.

—Baiña Jauna! Orrenbeste egokitasun, orrenbeste aberastasun kendu egin naiko daustez! Ostu egingo daustez! —esan eutson Pellotxu'k, Jesus'i.

—Ez dautsuez kenduko: Aberastasun guzti orreik gorde al izango dauzan izkillu edo armea Neuk emongo dautsut. Ara; eutsi...

Une onetan, eleiz-ezkilla, kanpaia, dilindalan, dilin-dalan! eleizara deika asi zan, eta bapatean zutiturik, amumak esan eutsen aurtxoeri:

—Eeene maitetxuok! Joan zaiteze azkar eleizara, ezkilla deika dago-ta!

—Baiña amonatxo, esan egiguzu lenengo, Jesus'ek Pellotxu'ri emon eutson lurraldea nun zan, eta bertako aberastasunak gordetzeko emon eutson izkillua zer zan.

—Jesus'ek Pellotxu-ri emon eutsan lurraldea, geure Euskalerri maitagarri au izan zan; eta bertako aberastasunak gordetzeko emon eutson izkillua, EUSKERA.

Beraz, ene kutuntxuok, Sagrarioak Jesus'en gorputza gorde daroan legez, gorde egizue zeuen biotzetan, Euskera, Jaungoikoak emon euskun izkuntza beneragarria.

Eta aurtxoak, eleizarako bidea artu eben kantari:

Euskaldun jaio nintzan
Euskaldun naiz azi
Euskera utsik amak
Eustan irakatsi.

Euskera maite-maite
Zeugaz nabil beti
Euskera il ezkero
Ez dot gura bizi.

ABELETXE

BESTE BEIN BEDEREN

Mitxelena jaunaren enbidoak

Urrillaren 18'ko Zeruko Argian, Mitxelena jaunak argitaratu zuanak ematen bide, zertxobait esan Areago: ez al dit, gaiñera, erantzuna eskatzen? Bein ontara ezkero, berriz, zillegi bekit, jaun berak «jend rrean» esan-berri dituan zenbait gauza ere alderdiren batetik edo bestetik ukitzea.

Benetan pozgarri zait Mitxelena jaunarekin, gauza batean berenik (eta geiagotan ere baietz uste dut iritzi bereko gertatu izana: Aita Intza'rekiko artan, alegia. Argi eta garbi ezagutzen bait du, etzizu atsegin izan: Intza'tar Damaso aitari begirapen geiago zor zitzaiolako, batetik; eta «elkar-hizketek zitzaketean ondorioentzat kaltegarri izan behar zuelako», bestetik. Gogoan jasotzeko aitorpena dala uste Arantzazu'ko giroaren ezaugarritzat. Eta eskertsu nagokio ontan bederen arrazoi eman didalako.

* * *

«Zatarain jaunaren lana ez dala eskribikera hortan idatzia» esaten digu Mitxelena jaunak. Baiña du esaten, Arantzazu'rako lanak gertutu bear zituan batzordeari Zatarain'ek azter-lan batzuk bidali zizkio oiñarritzat artutako bideak ikertuaz, ain zuzen ere. Lanak bidali eta ixilik gelditu izana, Zatarain jau eskertu ziotenik ere ez du esaten. Ikustekoak eta ezagutzekoak ez al ziran eta ez al lirake?

Euskalerriko seme izateaz gaiñera, oiñik atera gabe bertan gabiltzanok ez dugu ulertzen (nik beiñ ez) Mitxelena'k dion: «igerriko nuke nolakoa izango litzakean erantzuna».

«Ortografiaz» aldatzeari dagokionez, berriz, au galdetuko nuke: Izkuntzalariaren egitekoa ez al zailtasun eta erraztasun, aldeko eta aurkako, bietako arrazoiak argibidetzea? Iritzi jakin baten alde ateratz «maliaziarik gabe dalarik ere, ez al du berekin alako alderdikeriazko kutsu-apurren bat?

* * *

«Sorgin-ihiziaren oihartzunak» ere aipatzen ditu Mitxelena jaunak. Lenengo: ez naizela Oiartzu seme esan bear dut, bada ezpada ere. Bigarren, «ihizi» orrek asko arritzen naula, bai Mitxelena'ren idaz eta bai XIII'gn. EUSKERA aldizkariak dakarren iztegian. Ain zuzen ere, «ihizi» (BN,L,S) baiño a zabalago edatua dala «eiza» (AN,B-a-d-o-,BN,G,L,S) aitortzen bait du Azkue'k bere itztegian.

«Salatu» eta «akusatu» Mitxelena'k esanai ez-berdiñetarako izendatzen zituan bezela, ez al di oraingo auek ere bi-biak erabilli? «Ihizi» pizti edo abere basatia adierazteko; «eiza» eta «sorgin-e berriz, pizti naiz-ta sorgin billa ibiltzearentzat, alegia.

* * *

Mingarri gertatu zait, bestalde; zin-ziñez mingarri gertatu ere, Etxaniz jaunari buruz Mitxel esandako au: «Don Nemesiok, argi-billa badabil, aski du...». Argi-billa badabil? Zalantzan, beraz, billa ala beste zerbaiten billa dabillen.

Egia esan, neroni esanda baiño askoz mingarriago gertatu zait. Izan ere, idazten urte gutxi daram gunok, asmo onez gabiltzan ala ez, ziurki eta zalantzarik gabe argibidetzeko, eta sinisterazteko, ez l agian bear ainbat lan egin. Ain zuzen ere, bai alda urte luzeetako langintza ugaria eta oparoa bezain ez au uka-eziñik? Egintzak bait dira argibide, ta ez itzak.

Eta Etxaniz jaunak, erderazko zenbait ezkutu-ageriko eskutitz batzuk ezik, Euskeraren alde ta euskeraz idazten (eta Euskalerritik oiñik atera gabe) erre ditu buru-zuritu eta akitu arteko bizitz-osaun Nork uka dezake?

Barka bezait Mitxelena jaunak, baiña Etxaniz'ekiko zalantza ortan ez nindeke iñola ere bera irizkide izan.

* * *

Erantzutera beartzen nauten galdera batzuk ere egiten dizkit Mitxelena jaunak: «Erabaki na argitaratu zuan taldean dabiltzanak... nor diren eta zertarako ari diren lanean», alegia. Nortzuk? Zer ari?

1'go: Ezkutuak argitu-zale agertzen zaigu Mitxelena jauna. Euskaltzaindian guzia agerikoa ez gero, geiegi al litzake, izengabeko zortzi orrialde aien aita (ala guraso?) ezagueurazteko eska

2'gn: Ez al daki Mitxelena jaunak nortzuk diranik? Eta zergatik ez? Uztaillaren 28'an agertu na zitzaion aurrez-aurre itzegiñaz; baiña etzuan entzun ere nai izan. Eta orain galdezka? Besteren Erriarentzat?

3'gn: Zertarako ari ote dira, bada, lanean? Zertarako ari dirala esango ote luke? Euskera ondas goikoz beeratzeko, mordoillotzeko, zatartzeko, are ta areago puskatzeko, gaztelerazko itzak eg parrastadan sartuaz gozatzeko? Erriaren ezpaiñetako Euskera il-erazteko ote? Ez al zegon garbi, dalako erabaki nagusian: «ERRIA ESKOLATUAZ... abiatzen gera batasunera bida

4'gn: «Erabaki nagusia»z argitasun geiago? «Zeruko Argian» bertan eta iraillaren 9'koa baiño l argitaratu ziran zenbait... «zimizt-argi ez dakit baiña, «editorial» batzuk bai beintzat.

5'gn: «Zeru-lurrak argituko zituelakoan». Ez, bada; ontan ez du asmatu Mitxelena jaunak. ortan ez dago argi diztizaria zabaldu eta barreiatuko duan ez jainko-txikirik, ez iratxorik, ez son ez izar argirik. Beste nonbaitera jo bearko du orrelakoen billa.

6'gn: Uztailleko itzaldietan ere Mitxelena jaunak jakin-min aundia azaldu zuanez gero, eta jak orri erantzunaz, eskatu zitzaion elkar-izketa bat, leen esandako egunean, uztaillaren 28'an. Gu ala geiago, danok elkar ezagutzen genduanez, adiskide arteko artu-emana eskaiñi zitzaion. Erantzun... auxe: «Ez gera erdi-bidera etorriko eta ez noa denbora alperrik galtzera».

* * *

Gaurkoz aski dut. Urrengoan, J.l., «jendaurrean» entzundakoaz beste zerbait.

GAZTAÑAGA

GIROAREN INDARRA

Gure egunoroko izaeran, sarritan gertatzen zaigu, izan nai dugunaren ordez, giroko edonor bezela baiño ez izatea. Esan nai dut, soin utsez bakarrik izan gu; nortasunik gabe, gabiltzan pertsona batzuek bakarrik alegia.

Pentsatu... Pentsatu... Gure ordez, bestek pentsatzen duen bitartean, zertarako alperrikako nekerik artu? Ez; askotaz ere errezago zaigu zurrunbilloan murgildu ta giro joairan ibiltzea.

Giroak menderatzen gaitu. Giroari ostikoka, atzapadarka ta aginka ekitea, zoro-amets bat dela uste dugu.

Eguneko giro-barnaren beste aldea, oso ez-berdiña dugu. Askok, bizi guzian, buruzbide denak, iritzipen gabe goitik beera ezartzen oituta, beste erarik ez dagola uste dute. «Zuek ez zazute pentsatzen denborik galdu. Dioguna egizue ta kitto!».

Eta ez zazue uste, au, an-emengo atzerrietako gertakizuna dela, ez. Gure arteko giroari buruz ari naiz ta ez erbestekoz.

Ala ikus daikegu, zurrunbilloan murgildutako doakabeak ez daukela (eman nai ez zaiotela) askatasun biderik.

Legeak, goitik beera ezartzen jarrai nai da. Erria... Erria... Ba! Erriari naiko futbola, ta, kotxe bat erosteko dirua eman ezkero, aski du.

Eta orrelaxe gabiltz euskera bateratua dela ta sortu den iskanbillean, Euskaltzaindiaren, «diturji-euskeratzalle-batzordea» ren edo atariko aizearen izenean, erriari, eskatu ez duan zerbait ezarri naiean...

Belaunaldietan egin ez dena, egunean, abotik sudurrera sartu naiean, arazoak, auntzaren gau-erdiko eztulak baiño garrantzi geaigo ez ba-lu bezela.

Batasun arlo ontan bi (?) talde azaltzen dira. Urteetan lanean ari den «liturji-euskeratzalle-batzordea» bat, Arantzazu'ko billerakoa bestea.

Taldean lan egiten duana lenengoa.

Bateratze lana, gizon baten eskuetan utzi nai duana bigarrena.

Egitekoa, bakarrari dagokiona da taldean egitea da obeki?

Galdera orri erantzuteko, izkuntz batena jo dut argi billa, D. Ramón I i Rabés'engana. Eta beronen iritzia da bakarraren egitekoa. Areago orain ez-ta izkuntzalari talde baten egite ere. Dionez, «pueden pecar de una vi unilateral, y pueden tener un punt vista ciertamente profundo, pero cer a los problemas actuales y vivos».

Ori ala ba'da, arazoaren beam baldintzei lotuagoak daudela dirud nengo taldekoak. Baiñan, baldintz gu betetzen al ditu?

Iritzi eske ibilli naiz an eta eme naiz-ta egin den lana, erri geien gogoko izan dala aitortu, asko ta jokabideaz ez daude konporme. bakarreko lankideak direla pentsa da. Euren artean erri gizonik ez da alegia. Liturjia erri-izkuntzera itzuli garaian, erriak ere izango zuala esan-da, ia zergaitik kasu ez egin...

Leen aitatutako Fuster jaunare tzira, taldea, izkuntzalari, soziolog lijio-irakasle, injiniero, irakaslari t te ikastunekin osatu bear litzake.

Nola-nai ere, argi dago, «euske lle-batzordeak», erriari atzea ema lan egin nai ez ba-du, gaur bertati bear duala taldea osatzeko erri gizon

Euskera bateratuaren gai ontan, ta aldizkari batzuek, beste aldetik, «erri-bide» deitzen dioten aldera dira. «Erri-bide» ak, «liturji-eus tzalle-batzordea» ren batasuna om oñarri, gutxien bezela.

Au da, baita ere, adinak banatz dituen euskal idazle zaar eta gazt batek artu duan bidea.

Ikusten dugunez, «batzorde» or datorkio zenbait lan. Egin dena, bearraren asieratzaz baiño ez da a Aurrera jarraitu bear dute, ta, ori ain zuzen eurengandik erriak itx duena.

ZALO

AGUR

II URTEA
9 ZENBAKIA

ILLEROKOA
1971 - URTARRILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Kandelario bero,
Negua dator gero.
Kandelario otz,
Negua joan da motz.

ERRIA LARRI

Bakotxak geure bizitza labur edo luzea begiratzen badogu, egun pozgarriak eta egun larriak ugari agertuko jakuz.

Larrialdiak ete dira ugariagoak?

Batean gaizoaldia norberagan edo etxekoakan, bestean guraso edo sendikoen eriotzea; emen txirotasuna ta lanpetuta egotea, an auzokoen asarrekeria, or arerioen ekiñaldiak...

Eta zori txar guzti oneik guk kontuan artu bear geure geureak doguz ta, barru-barruan min emoten dauskue ta. Nor geratu leiteke norberaren edo etxekoartekoen samintasuna ta negarra aintzat artu barik? Ori gizon gogorra, gaiztoa litzake, biotz bakoa: ori, benetan, kristiñau erdiz-erdizkoa dala esango genduke, maitasun gitxikoa.

* * *

Erri-bizitzeak bakotxaren bizitzeagaz zer-ikusi eta antz aundia dauko.

Erri-bizitzan be, gizaldirik gizaldira, urterik urtera, egunerik egunera, ordu pozak eta ordu larriak ugari agertzen jakuz.

Ugariagoak ete dira larrialdiak?

Batean agintaritza-aldatze bildurgarriak, bestean agintarien edo menpekoen zuzengabekeria, emen erritarren ugaritutea eta ondasunen gitxitzea, an erritarrak larregi lanpetuta ikustea, or alboerrien ziriak eta kalteak. Bear bada erriaren nortasuna beste erri batzuk ez onartzea... Begiratu isrraeldarren kondaira...

Eta erriaren negar-ordu oneitan nor geratu leiteke bere etxe barruan begiak itxita... bildurrak eraginda? Ori erritar biotz bakoa litzake; ori erri-min bako erritarra litzake, benetan kristiñau epela, gizon barru-utsa...

* * *

Begiratu daigun gure Errira. Ikusi daigun bere kondaira garbi ta larria.

Leiza-zuloetan bizi ei ziran gure asaba zarrak. Zenbat jakingarri azaldu geinzkiguzen gure BARANDIARAN maitagarri ta jakintsuak!...

Onein semeak, otzak igaro ta aro obea agertu zanean, mendiko bizitza basatia izan ei eben: eiztariak, artzaiñak, arraintzalleak, geroago nekazariak, ei ziran... azke, arazo sakon asko barik bizi ei ziran, alatabe euren nortasun eta buruen jabe.

Gizartea alkartuez joian: Bide zabal barriak egin ziran, erbestekoen burdiak mendi arteetatik ebiltzan, Kristoren irakatsiak gugana eldu ziran... ta gure Erria Erri txikia, gizarteratu egin bear... eta berez-berez, apurka-apurka, gizarteratuez joian. Baiña zer egiteko erri aundien artean erri txiki batek? Arrisku aundi bat agertu zan: Erriaren izaerea galtzeko arriskua.

* * *

Errialde bakotxak bere bidea artu eban: Naparroan errege-bidea, Bizkaian (orduan gaur baiño zabalagoa zan) Jaun bat aukeratze-bidea... Baiña andik eta emendik Erriaren izaerea galduez joian, Naparroak erbesteko izkuntza legez artu eban...

Lege zarrak kontuan artzekotan, Jaunak eta erregeak, aundiak bat egiten dira geienetan, eskontza bidez bat egin eben. Gero karlostarren guda samiña eta legezarrak amaitu ziran. Gero gudaldia, erriko semeen odolak iñoz baiño ugariago ama lurra eskotu eban eta Erriko ibaiak gorritu... Gorrotoak, eriotzak...

Baiña erri-miñak bere lana egin eban. Erri aundia eta txikia aurrez-aurre jarri ziran: barriro odola, eriotzak, salakuntzak, gorrotoa...

Gero egun bildurgarriak. Burgos'ko epaikundeak. Sei gaztentzat eriotzea eskatu eben. Beste amarrentzat ainbeste urterako espetxea. Epaia? Seirentzako bederatzi eriotza-zigor. Espetxe-urteak eskatuak baiño gitxiago ez. Benetan gure Erria giro ikaragarrian, gitxienez, ordu arcitan!

Gero laster, eriotza-zigorren parkapena, eta ordez ogetamar urterako espetxera. Baterako, bizia beiñena da. Alde orretatik egun pozgarria. Baiña arazoa or geratzen da. Eta Erria larri dago.

AGUR



AGATE DEUNA: Geu geure nortasuna itoten!

ANAI-ARTEKO GIROA

Zer ekarriko ete dausku urte onek? Onango edo antzeko itauna beti egin oi dautsagu alkarri urtearen asieran. Jakiña, etorkizun dan urtearen barririk ezin aurretik jakin. Gutxiago jazokizunik iragarri. Jainkoak bakarrik, bestek iñork be ez.

Galdera zabala da. Zabalegia, beronen erantzuna lantxo baten gai izateko. Giza-bizitzari dagokiozan arazoak era askotakoak dira-ta. Onegaitik mugatu daigun gure jardukizuna, goiko esana aonelan zeaztuaz: Jaio barri dogun urte onek zer ekarriko ete dau euskerarentzat? Onuragarri ala kaltegarri izango ete?

* * *

Euskaldun izatea aintzat artzen dauan edonork izan bear leuke kezka au. Es dot uste garrantzitsuago dan ezer esku artean gaur egun darabilgunik. Euskaldunok daukagun bitxirik bereziena, goragarriena, begiragarriena gure izkuntza dalako. Berau galdu badadi, Euskalerriarena eginda dago. Egun ez da naikoa euskaldun izatea. Ezta etxean euskeraz mintzatzea be. Il nai biziko burruka gogorrean diarduan euskerari euskaldun danak eskeiñi bear dautso bere laguntza. Guzti-gustion ekiña ta alegiña eskatzen dauskuz. Ezin luzaroago itxaron. Egon-egon bagagoz, beranduegi egingo litzakigu.

* * *

Euskera larri-larri dagoana, gauza agiria da. «Emendik berrogei urtera, bear bada, baserria ta euskera, biak galduak izango dira, erabat ezkutatuak», idatzi dau oraintsu Basarri jaunak. Itxurak alakoak daukaguz.

Ez, ez! Ez gaitezan erostaka asi. Erostari lar doguz gure artean deusik be egiten ez dabenak. Erosta utsak ez dausku ezer onik ekarriko. Ez dau sekula ekarri.

Euskeraren estu-aldi mingarri au ikusteko ingurura begiratu bat emon besterik ez daukagu. Etxe barrurako, senide arterako ta bakarkako artu-emonetarako berbabide ta lokarri dogu gure izkuntza. Ta geroago ta gutxiago. Eskoletan irakastea galazota dago. Orregaitik gara euskaldunok ain ez-jakiñak, eunetik larogetaemeretzi «analfabetoak», jatorrizko izkeraz irakurtzen eta idazten be ez dakigu-ta. Zoritxar tamalgarriagorik izan ete leiteke izkuntza batentzat?

Gizarteko artu-emon-bideak (irrati ta abar) erderazkoak ditugu. Diru-arloan, ostera, euskerak ez dauko tarteko izaterik. Ta erabilli diruak darabil gizona. Diru-bide dogunari begitartea egiten dautsagu. Irabazpide ez dana, barriz, bazterreratu. Auxe da, ene gardiz, ainbeste bider entzuten dogun esakun onen sustraia: Zertarako da euskera?

Antziña be antziña, au da, 1545 garrenean otsegin eban Bernart Etxepareko leen euskal idazleak: «Euskera ialgi adi plazara!» Ta laureun urte geroago plazaratu barik oraindik. Gizarte bizitzatik baztertua dakusgu. Areago: kaleratu baiño leen, bide-aldi andia egin bear.

* * *

Euskeraren gainbera ta gainbera etorte au ez da atzo goizekoa, aspaldi aspaldikoa baiño. Baiña azkenengo bi gizaldiotan egin dauala esan lei atzekadarik aundiena. Etorri be aurten datorkiguz eun urte Luis Luziano Bonaparte ospetsuak izkuntz-mapa egin ebala, euskeraren zabalera ta mugak zeatz ezarriaz. Ba da alderik! Arrezkero estutu ta estutu egin jaku beronen barrutia, gure egunotan abiada bizia artzeraiño. Ta gaur? Bizigarririk bagarik, arnasarik artu ezinda, il ari-arian. Ba ditugu, izan, itxaropide diran aztarnak. Umetxoen ikastolak, gazteen zaletasuna, liburu barriak... Pozgarri benetan! Ori zer izan, baiña, daukazan oztopo ta eragozpen guztiak gaintzeko?

* * *

Zoritxarrik galgarriena, alan be, gure egunotakoa dala esango neuke: euskaltzaleak alkarrengandik banandu izana. Areago: batak besteari atzamarka, ozka ta aginka egitea. Oker ilgarriagorik etorri ete leitekion gure euskerari?

Ez dakit noiz eta nun irakurri neban, leentxo izan zan-eta. Baiña egi-egia da onoko au irakurri nebana: latin-izkuntza errian bai ilgo ez ilgo zala, latin-zaleak alkarregaz egundoko eztabaidatan ekin eta ekin ziarduen gartsu baiño gartsuago: au olantxe idatzi bear litzakela-ta, beste ori era onetara obeto legokeala-ta... onango uskeri aspergarri ta galgarrietan. Bitartean il zan izkuntza erriarentzat eta kito. Ez ete jako, gero, olako zerbait euskerari be etorri? Nik beiñik-bein ezin dot burutik kendu. Ezin!

* * *

Gure euskera onek ba dau premiñarik, iñungo izkuntzat izatekotan. Ta, nire ustez, auxe gaur bearrezkoena: euskaltzale guztiok alkar artzea ta batera jokatzea. Batez be seta, azpi-jana, alkarri erosoka ta ukabilka jardutea, ori bai negargarri ta euskerarentzat galgarri. Euskalduna temati ta egosgogor ei da. Izakera au iñoiz baiño geiago nabarmendu ta gaillurtu dala dirudi gure egunotan. Noz edo noz zentzuduko al gara! Urte barri onek bekarskuz euskaldun eta euskaltzale guztioi alkarganako begirune ta itzala, anai-arteko giro gozo-epela.

PUXANA

EGO-AMERIKA


Aurreko idazkian lurralde onetaz berri batzuek ematen genituan. Zeraman gaitza eta zetorkion itxaropena ere aitatzen genuan. Bertako langilledia egoera latzenean arkitzen dala sindikatoetan elkartu gaberik, esaten genuan, batzuetan agintarien galerazpenaz eta besteetan beren utzikeriaz.

Esango genuke zurrunbillo batean jira-biran dabillela, nola atera jakin eziñik.

Alako agintariek alako erria egin dute, ezjakintasuna eta mixeria eman diotelarik. Ezberdintasuna, berriz, berez aberats diran lurraldeotan, gero eta argiago ari da nabarmentzen, bakar batzuek aberastasun zabalenen bidetik eta geienak mixeri ernagarriagoko bide estuetatik.

Izan ere, Latin-Amerika, irugarren maillako langilledia rentzat goseleku, analfabetismo-leku eta mixeri-leku gertatzen da.

Egunetik-egunera esi aundiagoak jartzen diran tokietan orrela lan egiñik, noski, geien auentzat nekaldi-laiz bat baldin ba-da, beste gutxientzat jolasa eta gozamena izan bear.



Bi gizaki mailla auek, egoera orretan, aberetasunera jetxi dira, ez baidute bizitu nai, materialismo nagusienera jetxiaz jan, edan ta umatuaraztera bestetara baiño.

Jate-gutxiren arazoaz, ez bai-da arazo makala, burua beroturik dabilkite 276 milloi latinoamerikarretatik 200 milloiek; iru errikideetatik bat aspaldidanik da «gosepasatua»; 45 milloi nekazari daude lurraz jabetzeko eskubiderik gabe; eta 14 urtetik gorakoen artean erdiak analfabetoak dituzute.

Latinoak «keri» asko eraman zituztela lurralde aietara, eta batezere politikakeria eta indarkeria, esaten zidan andik, egun batzuetarako etorri zan tolosar zaar batek. Ez zebillela guztiz oker esan ere egingo nuke, bada, USA'ko Nazio-arteko Aurrerapenen Bazkunaren estadistika bat irakurtzean. Estadistika orrek dionez, bost urte auetan Latino-Amerika izan da indar-armatuetan geienik igo dana: eunetik 62 inguru.

Gudalburu auek politika arazoetan sartzen diralako nabarmentzen dira batezere. Latino-Amerikaren izkillu-indarrak 750 milla omen dira, 500 guda-itxasontzi eta 3.500 guda-egazkiñez.

Gutxi, baiñan ala ere, subdesarrollatutako Kontinente bati nai aiña eusteko, Aitatutakoaz gaiñera polizi-indarrak baitaude. Onetaz, Txileko «Mensaje» aldizkariak, 1970'gko Loreillean, 188' garren zenbakian, militarismoa aztertze-lan batean esaten digunez ia 18 milla ofizial ikasisaioak egin omen dituzte USA'n, 1950'tik 1966' garrena bitartean. Entrenatzeko zenbait toki bai omen daude bereziak: Fort Gulick (Panama Kanal'ean), Fort Braggs, Ipar Karolina'n, ta polizientzat Nazio-arteko Akademia bat Washington'en; Akademi onetan bi milla ofizial egon omen ziran 1967'garrena bitartean, eta oietatik latino-amerikarrak eunetik 60 izanik.

Indar oni zaion beldurrak, ezjakintza lotu dula zurrunbillo itxuan, erakusten digu ongien zer dala-ta langilleen eskabideak porrot egiten duten. Erakusten digu ere gogorkeriaren sort-iturria.

«Iñoiz ez duzute ikusiko izkillu-armaz kapitalistei erasotzen».

Irakasleak euskaldunoi esandakoa nunnairako balio du.

OLAZABAL'DAR X.

EUSKERA

EUSKALTZAINBURUAREN ESKUTITZA

Gure idatz-batzordean Aita Villasante'ren eskutitz bat artu dogu, gure aldizkariaren 6'gn. zenbakian Piper Zirik izenpetuta idatziari buruz zeozer argitu naian, eta «derecho de réplica» dalako orreri oratu naian.

Eskubide orrek eskatzen daben epearen barruan egiña izan ez arren, oraingo au argitaratuko dogu, baiña emendik aurrera OAR au kontuan izan: «Gure aldizkaria bere buruaren jabe da oso-osoan, eta ez dauka Euskaltzaindiagaz zer ikusirik. Kritika egiteko eskubidea gureganatzen dogu (jakiña, neurri baten barruan) ta zeozer atsegin ez badu aurkitzen billatu dezala nun eta zelan erantzun, guk ez dogu geiago jaramonik egingo».

Orrez gaiñera guk ez dogu iñoiz auzi biderik izendatu, guk ez dautsegu iñori «betorik» ipiñi (gure zuzendariari Euskaltzaindiko batzuk bezela), guk ez doguz umekeriak, ganorabakokeriak eta «personalismoak» aintzakotzat artzen.

Naiko da!

AGUR

1970,abenduak 11

Agur aldizkariaren zuzendari jauna
Apartado de Correos,2

Bilbao

Zuzendari jauna:

Agur aldizkariaren 6-garren zenbakian (1970 - Urria - 30), bigarren orrialdean,artikulu bat dator, Piper ziri-k izenpetuta, eta "Pozak eta kezkak" tituluduna.Bertan egia ez dena Euskaltzaindiari egozten zaio.Eta honek,erantzun gisa,eta "derecho de réplica" delakoaz baliatuz,argitasun hauek bialtzen dizkitzu:

1) Ez da egia tokiren batean kaballo esaten delako,hitz hori edo kasu bereko beste hitzik onartu behar dela irakatsi dugunik.Euskaltzaindiak diona hau da: Zabalgo handiko hitzik ez dela baztertu behar,erderatikoa dela eta beste gabe.Neurri horrezaz baliatu gera hilabeteen izenak hautatzean,eta hala jokatuz,edozein hizkuntzatan hartu ohi den neurria hartzea besterik ez dugu egin.

2) Ez da egia Euskaltzaindiko batzarreak liberal eta liberauenak direnik.Euskaltzaindiko guztiei bialtzen zaie batzar-deia,eta guztiek dute etortzeko eskubide.Araudia ere ez da orain egina,aspaldidanikoa baizik;eta beronen arabera hartzen dira erabakiak.Euskaltzaindiko karguduнak,berriz,erabakiei jarraitu behar zaizkie,beren eginbidea den bezala. Eta erabakiak hartzeko bototara jotzen da Araudiak eskatzen duenean eta batzarkideek hala komeni dela uste dutenean.

3) Eta azkenik, batzarrean erabiliko diren gaiak Idazkariak jartzen dituela,ez da egia.Batzar-deiak (eta bertan datozen gaiak),euskaltzainburuaren aginduz, Idazkari-ordeak egiten ditu.Gainera,hilabete osoa dago batzarre batean onartu zena,hurrengo batzarrean (agiria onartzean) erabat sendotu eta finkatua gelditu arte.Eta bitartean beren oharrak egin edo bidal ditzakete,baita batzarrera joaterik ez dutenak ere.

Zuen intentzio ona dudatan ifintzen ez dugun ezkero,Agur-en orrietan pundu hauek argi utzi nahi genituzke guztion onerako.

Honenbestez,bihotzez agurtzen zaitu,

EUSKALTZAINBURUAK

Fr Luis Villasante
O.F.M.

EUSKALTZAINDIA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Pozak eta kezkak

Euskera batua edo «euskeranto» ren aldekoak zeozer eskeñi ei dautse euskerari. Besteok ezer ez. Zelan sortu ete zan «Anaitasuna» aldizkaria? Guk dakigunez, Aita Imanol Berriatua, Andoni Esparza jauna ta Josu Arenaza jauna, izan ziran asmatu ta sortu ebenak; H zaleak ete dira azken jaun bi oneik?

* * *

Sortzea da gauza bat eta eutsi al izatea beste bat. Orretzaz be zeozer esango leukie bizkar gañean zorrak artu zituzten beste jaun H bakoak.

* * *

Euskeraren batasuna? Gauza erreza! Euskaltzaindiaren buruak illen izenak eskeñi dauskuz: Aprilla, Martxoa, Abuztua... eta abar! sekula olako buru auzterik! Joan dan mende osoan, Bermeo inguruan egiña zegon «batu» ori. Orain Bizkaiko ixorierrin esaten dala ta ermanua, primua, caballua eta abar. Sartuko dira Euskaltzaindiaren (?) iztegian... ori dala uste dogu, Aita Villasanteren «Kriterio biolojikoa». Oar: Parkatu, Hermanua (gu H bakuok!)

* * *

«Euskerantoz»: «Baina permiti biezadate autore biok... biba zuek eta zuen liburua»! Eta biba la Marimorena, pronto hablauko dogu todok puebloren euskera (lelengo zatia aldizkari batetik artua).

* * *

24 euskaltzain osoak; 3 oorezkoak; 150 inguru laguntzalleak, Biltzen diranak? Ogei inguru; Donostian, ostiralez, bertakoak, abadeak, lau liberalekoak edo «liberauak» izan bear (eta ez dira bardin).

* * *

Iritzirik eskatu? Bai zera! Auteskundea komeni danean antolatu; botoa lagunak eroateko eskubidea billatu. Komeni ez bada «alfabetatze kanpainarako izendatu doguz» esan eta norberaren taldekoak sartu ez dok idazkari jauna? Gero Euskaltzaindiak izan bear ei dau «lema» dun... zelako «lemaduna»?

(AGUR VI'tik) PIPER-ZIRI

Lotazilleko Euskaltzaindiren batzarrerako deiatik

Emen alboan ikusten dogunez, Azilleko batzarrean, Euskaltzaindian gure aldizkariari buruz itz egin eben (ortik guri egindako eskutitza); idazkariak guri erantzuteko baimena eskatzen dau «bear dan disziplinari eusteko».

Ez dakigu orregaz zer esan nai daben, guk ez dogu ezertariko «disziplinarik» ezagutzen eta; dana dala, orain arte (guk dakigunez, beintzat) ez du erantzuteko baimenik bear izan. Lekuona Jauna Euskaltzainburu zala, ta onek ezer jakin barik, garratz erantzun eutsen Arenaza Jaunari, Bilbo'ko Asteleneko orrian (kartak noiz nai argitaratu geinkez). Ikusten dogunez Euskaltzainburua aldatu (?) ondoren «oiturak» aldatu nai dira.

«Politesa» esan bearko dogu.

Dilin, dalan, kanpai otsa!

Idazleak eta batez ere euskaltzaiñak badakizue; emendik aurrera, Retana Jaunari lagundu nai badautsazue ez dozue «baimenik» iñun eskatu bear.

Emendik aurrera «Agur» en be idatzi zeinkee, Euskaltzaindiak «betoa» jaso dau-ta! Eskerrik asko!

ESAKERA JATORRAK

Nik ekarri *«ez» nekarren*
Ekarri *nik «ez» neban egin.*
Ekarri *«neuk» dakart.*
Eroan *«zeuk» egin zenduan.*
Ibilli *«ba» dabiltz.*
Orain «joan» egingo da.
Joan *«oraintxe» egingo da.*
Orain berba-ta-berba «egin» egiten dau, baiña ixildu *be «laster» egingo da.*
Egon ez-eze, lan be «berak» egiten dau.

Ez erosi *bakarrik,* pagau *be «neuk» egin dot.*
«Joan» egin zan, baiña etorri *be «ba» dator.*
Erosi *«aitak» egin arren,* erabilli *«neuk» egingo da.*
Irakurri *«gitxi» egiten dabe euskaldunak.*
Il be «kantetan» egingo nok ni.
Orrek euki daki egiten (eukiten).
Arek jakin daki egiten (jakiten).
Liburua erosi *ta* ekarri *«anaiak» egin eban.*
Nik-neuk euskerea «ikasi» egingo neuke, nok ira katsi baneuko.
Ibilli «ba» dabil, baiña aspertu be egingo da.

Itaungaia kakotx artean doakizu. Izki bereziaz idatziriko berbeari aditz-izen askatua esan geinke. Itaungai berau dala dirudi, baiña ez da, antza euki arren. Ta itaungaia aditz jokatuaren aurre-aurrean ipiñi ezkero, jokatu bako aditz ori, askatua dalako, esaldiaren beste edozein zati legez, aditz-era baiño leenago zein geroago joan daiteke.

Argibide batzuk:

1.—*Etorri* neu *nator gaur.*
Itaungai neu *izen-ordea dozu. Onegaitik «nator» aditz-eraren aurre-aurrean joan bear dau. Ta* etorri *aditza «nator» baiño geroago be ondo letorke. Era onetara:*
Neu *nator etorri gaur.* *edo: Gaur* neu *nator etorri.*

2.—*Ekarri* neuk *ekarriko dot etzi.*
edo: Etzi ekarri neuk *ekarriko dot.*
edo: Neuk *ekarriko dot etzi ekarri.*
edo: Etzi neuk *ekarriko dot ekarri.*

3.—*Irakurri atzo* anaiak *egiten eban goiko gelan.*
edo: Irakurri atzo goiko gelan anaiak *egiten eban.*
edo: Anaiak *egiten eban atzo irakurri goiko gelan.*
edo: Goiko gelan irakurri anaiak *egiten eban atzo.*

* *

Irakurleentzat azterkizun:

a) *Joan neu egingo nintzake gaur.* b) *Ni joan egingo nintzake gaur.*

Esakun bion esangurea bardiña ete da? Bai? Ez? Zein da lenengoarena? Ta bigarrenarena?

PUXANA

Enero	**Ilbeltza, Urtarrilla**
Febrero	**Otsailla, Zezeilla**
Marzo	**Epailla, Epalla**
Abril	**Jorrailla, Jorralla**
Mayo	**Orrilla, Maiatza, Loreilla**
Junio	**Garagarrilla, Bagilla**
Julio	**Uztailla, Garilla, Garagarrilla**
Agosto	**Dagonilla, Agorra, Agorrilla**
Setiembre	**Irailla, Agorra, Agorrilla**
Octubre	**Urrilla, Urria**
Noviembre	**Azilla, Zemendia, Azaroa**
Diciembre	**Lotazilla, Abendua, Negilla, Gabonilla**

Euskal-Errian, geien erabilli diran illeen izenak. «Karmel-2» aldizkarian, Aita Yurre euskaltzaiñak egindako idaz lanetik artuak.

"NI PEKATARIA" REN ORDEZ

1 go. puntuari

Nik, «neure ustea» argitaraldu dot. Zer dala ta? Orri onetan ikusten dogunez, Aita Yurre'ren idaz-lanean, izen jator mordoa egoan, euskal sustraizkoak bear diran amabiak aukeratzeko.

Baiña Martxoa, Aprilla ta Abuztua askok esaten dabela ta, «zabalago» dagola ta, jatorrak alde batera botata, erderazkoak artu dira. Au esan nai dogu: Orrela jarraitzen badogu laister kaballua, ermanua ta primua bere onartuak izango dirala. Ta ez gara arrituko, «blankoak eta negroak» irakurri dogu nunbait.

Villasante Jauna, zenbat euskaltzainen iritzia eskatu zendun aukeratze ori egiteko? Baliteke «kasu» orretarako bear ez izatea.

2 gn. puntuari

Nik zera adierazo nai nuen: Eun ta berrogeta zortzi (gitxi gora bera) euskaltzain dira, ostiralez (astegunez) Donosti'ra joateko aukerarik gitxik izaten dabela, ez Euskaltzaindiaren oztopoaren erruz, bakoitzaren zeregin eta lanak debekatzen dautselako baiño. «Bertakoak, abadeak, lan liberalekoak eta «liberauak» joan al izaten dira. Nortzuk dira azken oneik? Euskeratik, edo euskera lanetik bizi diranak; Euskaltzaindiak zer ikusirik ba'dau ka diru-zaiñak jakingo dau.

3 gn. puntuari

Batzarretan erabilten diran gaiak Euskaltzainburuak agintzen ei ditu. Siñeztu egi bearko «buru» orrek esaten badausku... baiña beti ez da orrela izan.

Iñoiz beintzat «izendapen barriak idazkaritzaren proposamentuak» izan dira; adibide igezko Lotazillean orrela izan ziran. Bizkaia «alfabetatze kanpaiñarako» jaun bat izendatzea «proposatu» zuen idazkaritzakoak eta gero onartua izan zan. Arrezkero, Jaun orre ordez beste bat aukeratu eban idazkaritza eta kito, iñork ez eban ezer esan: laguntzaile bat geiago. Orain Euskaltzainburuak estruktura barriak eskeintzen dauskuz, ille beteate epea izango dala uste dogu, estrukturak eta izendapenak onartzeko. Euskaltzaindiko legegizonak bere, izango dabe zer ikusia nosk

Azken oar bat: Nere iritziak baliteke nozik bein mingorrak izatea, orregaitik dira «piper» zirizkoak. Baiña gure «intenzioa» on dala ikusi dozu ta ezkerrik asko Aita Villasante! Ez izan dudarik, gure elburua euskararen ondasuna da ta ez ondamendia; bide onetan jarraituko dogu al dogun bitartean beintzat.

«PIPER-ZIRI»

Idazkariak dio, "Agur" (6zonb.) aldizkariak pozak eta kezkak izeneko lan bat argitaratu duela Euskaltzaindiarentzat iraiñoz, tartean idazkariaren izena ere ora beroan orabiliaz. Bohar dan disziplinari eustoko,aurrerantzean abusurik izan ez dedin, sekretaritzaren izenean ofizialki erantzutoko oskubidea oskatzen du, bestela, bere izenaren hondra mantontzeko partikular egitera beharturik dagoelako. Euskaltzainburu-ordezkoak dio, iraindua Euskaltzaindiaren idazkaria izan dala, eta ez pertsona partikular bat, eta Euskaltzainburuak beregain hartu behar duela "Agur" aldizkariari erantzuna omatea. Era hau ontzat hartua izan da.

Idazkari-ordezkoak, Gonzalez Olló-k Burobari buruz argitara berri duen katalogoa Euskaltzaindiko liburutegirako komonigarria dela. Erostea orabaki da.

"La Gran Enciclopodia Vasca" - Azkue auziagatik Euskaltzaindiak boro ar tokoontzat jarri zuen kolaboraziozko botoa jasotzen da.

A. Irigoyon jaunak dio, botoa altxa baino lohen agertua dala Euskaltzaindikoron baten kolaborazioa.

Idazkariak boro aldotik argi jarri nahi du, Peru Abarka-ren argitalpen berriari, "La Gran Enciclopodia Vasca"-k argitara berri duena, ba direla bi urte hitzaurroa borak ogin ziona, eta auzia bitarte zalako urte botoan ogon dala argitaratzeko oman zuen ukaponoz eta orain zabaldu berri bada oro, oz orain dik berak hortaréko bainonik oman duelako.

GAZTE

EUSKAL HIT PARADE

Lotazilleko zeaztasunak Ares jaunagandik jaso doguz, 15'gnekoak eta illaren azkenekoak. Lenengo zati orretan Donostiako abesbatza «Orfeon Donostiarra» etorran aurretik, azkenerako baiña, Gernika'ko «Naikari» taldea geratu da garaille. Arek, salketa aundiagoa izan dau, autarki ta eskabide ugariago onek.

Irugarren, Estitxu, bere indarraren indarrez, ba-dau onek berea, ta bultzaka «fan» talde ederra.

«Urretxindorrak» urrengo, ez baiña txorrotxioak makaldu jakozalako, il erdirako bere disko barik geratu ziran saltokiak, eta barriak ez dira garaiz eldu.

Luis Mariano gero, aspaldian goiko mailletan lotuta. Xabier Madina, barria leiaketa onetan, illonen azken erdian gorakada ederra egin dausku, onek eta Carlos Mungia'k laguntza obea merezi dabe entzuleen artean; ia salketa utsetik lortu alizan dabe goian izate au.

Ara emen 1970'ngo. Lotazilleko mailladia:



Gernika'ko NAIKARI taldea

1.—**Danok Lagun,** *Naikari.*
2.—**Ator, Ator,** *Orfeón Donostiarra.*
3.—**Bakarrik,** *Estitxu.*
4.—**Neska Zarrak,** *Urretxindorra.*
5.—**Ezin aztu,** *Luis Mariano.*
6.—**Baso-bidean,** *Xabier Madina.*
7.—**Aitor'en izkuntza zarra,** *Urretxindorrak.*
8.—**Aurtxo txikia,** *Carlos Mungia.*
9.—**Txamarra zartxo bat,** *Oskarbi.*
10.—**Ez kanta beltza,** *Benito Lertxundi.*

Urrengo zenbakirako agindu dausku Ares jaunak, 1970'ngo laugarren urte-laurdeneko salketa neurria, ta aurretik ezin esan zein datorran garaille: Oskarbi?... Urretxindorrak?... Naikari?... gogor ibilli dira danok, azterketea amaitzean jakingo ei-dogu.

Bitartean, ara emen, Lotazillean garaille izan diran Naikari taldearen **Danok lagun** *abestiaren itzak:*

DANOK LAGUN

Egun sentiaren pozaz
mendi aldera
gazte taldetxo bat
izadiagaz batera
igaretzera ordutxo goxoak.

Mendiko zera bai ederra
an izaten da nai doguna:
Alkartasuna, umorea,
eta alaitasuna,
eta danok lagunak.

ASTI

KULTUR IRAULTZLARI BATEN NAIA DALA TA...

«Naiago nuen bat edo bi il bazituzten».

Gipuzkoa'ko uri aundi baten lagun bi alkar-izketan. Euretariko bat burrukalari trebea, kultur maillan, jakiña!

Burua belarrira makurturik besteari ei diñautso: «iri esaten diat baiña naiago nian bat edo bi il bazituzten». Ez da arritzekoa? Egia ete da? Bai jaunak, egia da ta ez da arritzekoa, lotsatzekoa baiño. Ederra kontua! Margoari begiratu barik, kolore guztietako erritarrak artega izan diran garaian; aldekoak eta zentsundun etsaiak otoi bardiñean alkartu diranean; mundu guztia bultzaka jarri danean, taldeko lagun batzuk «narrubizian» bizitza arriskoan jarri dabenean, epaituen artean eriotzarik izan ez daiten danok eskatu dogunean... orra or «kulturadun» gizon baten azken naia... bere lagunen Eriotza! Bere lagunen eriotza, ez baiña berea edo bere senide artekoa, bere anaiarena, ez; laguna izan arren auzokoarena!

Zer dala ta «gurari» ori? Ona emen iritzi zital onen mamiña. Erritarraren eriotzak biotzak samintzen ditu. Samintasun orreik «narruak» bigundu, biguntze orreik norberaren ideolojia sartzeko giroa aukeratzen dau. Sentimentuak gora-goraka jartzen diranean belarriak gortzen eta begiak lausotzen dira... iritziak eta ideolojiak nastatzen dira... orretarako bear zituan «gure sasi-burrukalariak» bere lagunen eriotzak.

Unibersidadean nere burua «reazionariotzat» salatzen daben «funzionarioak» (estaduren dirutik bizi diranak) irri-parre egingo dabe nere esanak irakurtean baiña bardin jat: Marxismo-leninismoaren «praxisak» erakusten dauanez «elburuak bide guztiak onak egiten ditu» Eriotzea bear bada... il! Baiña kontuz mutillak, bada ez bada, besteak aurretik bialdu... Kulturadunak gerorako gorde bear ei dabe euren jakituri guztia! Ai eurak! erriari bidea erakutsi bear ei dautse ta ezin olakoetan sartu! Euren jakituria dauanik, zelan aurkitu? Euren ideolojia nagusi danean ikusten dogu zer jazoten dan: Txekoslobakia, Tibet eta orain Leningrado'ko epaikundea. Badakigu zer azalduko dauskuen, Ipar-Amerikako baltzen bizi-modua, Ego-Amerikako errizapalketa, Vietnam'ko guda ganorabakoa... bai ta zer? Ondo ezagutzen doguz «demokratziaren» izenean egiten diran nabarmenkeriak. Nun dago baiña egizko demokratzia?

Dana dala ba-dago erri batetik bestera aldea. Begira beste barik Prantzi'ra, bertara... gu ez gagoz ango gobernu edo gizarteagaz konforme baiña euskaldunok, an, emendik joandakoak beintzat, arrera ona izan dogunik, ezin ukatu. Beste era batera itz egitea demagoji utsean sartzea da. An bere Erriaren nortasuna zapalduta dagoanik ezin ukatu, baiña angoa bigunagoa da, ala ez? Baliteke gero okerragoak izatea baiña orain ez. Aria galdurik baiña, urrunera jo dot. Nik gauza bat esan nai izan dot: Ia egunero egoten naiz espetxean semea dauken guraso batzuekin. Lasai dagoz eta adoretsu baiña... eriotzik ez dabe nai. Ta nik bere ez! Ez dot eriotzik iñorentzat nai ta gitxiago erritar batentzat, naiz pentzakera ezbardiñekoa izan. Biziak ez dute itxaropenik galtzen; illen «gerokorik» ez dogu ezagutsen, siñismenak diñoskuna izan ezik. Orregaitik ez dot eriotzik nai, askoz gitxiago erritarrak izan ezkero ta gitxiago oraindik «kidea» banintzake.

Baiña ikusten dogunez «kulturadun» taldeko batzuk, bere antxiñeko lagunen bizitzak gauza txikertzat daukez; mundu guztiko langilleen iraultzako katearen maillatxo bat, besterik ez.

Gutzat, eta parkatu «jakintsuok», euskaldun gazte baten bizitzeak ori baiño askoz geiago balio dau, naiz elburuak lortzeko bide ezbardiñak, luzeagoak edo ameslariagoak izan.

Eriotza nai dunak eskeñi daitela bere bizitza, baiña ez lagunaren odol eske etorri! Naiko da berbalapikuok!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKEREA

Urtarrillan 12'an Bermio'n izan giñan euskeratzaz berbaldi bat entzutera joan da, ainbat gazte batu zan bertan, kontuan arturik arrantzaleak ez dagozala, estudianteak bere ez.

Berbaldian zuzendari D. Martin Olazar izan zan, ederto azaldu zituan euskeraren arazoak eta gaixoak.

Azaldu eban lenengo puntua, zelan gure Sendia, Erria, Aberria, guk eginda aurkitu doguzen, geuk aukeratu barik. Orduan guk geure izakera guztia zor dautsagu, lenengo lekuan Sendiari, beragandik datorrelako erritasuna ta erria maite izatea. Baita bere, eginda aurkitu doguz oiturak. Erriaren izakera orreri errespeto aundia zor dautsagula uste dot, gure izakerean jabe dalako, baiña beti ez gara konformatzen gure errian izakerakaz, pentzakera ezbardiñekoak garalako.

Niretzat punturik ederrena izkuntzeana izan zan. Ta onetzaz esan eban, izkuntza bat ilten danean aberria arriskuan dagola, aberri batek bere izkuntza daukanean, aberri orrek beste batzuk gandik oso pentzakera ezbardiñak izaten dauz; esate baterako, ezin dau bardin pentza Kongo'ko gizon batek ta euskaldun batek, ez, euran erri arazoak oso ez bardiñak dira. Orduan, Baltz ori badator euskalerrira zer egin bear dau? Lenengo emen geratzeko ustez badator bertoko izkuntza ikasi. Orretarako euskaldunak artu bearko doguz postura batzuk eurentzat gogorrak izango diranak bear-bada: euskeraz egin toki danetan, eta beti entzuten badau, bera arduratuko da ikasten, baiña gure geixoa da biak dakiguzala ta bestea ondoan ikusita errukitu egiten gara, bere izkuntzan asiaz ta gurea bastertuaz.

Gero azaldu eban erri txkietan jazoten dana umeakaz, bere aita ta ama gandik ikasiko izkuntza bastertu ta iñoz entzun ez daben izkuntza baten ikasten asi, gero jazoten da umeak besteak baiño atzerago gelditzen dirala, ta jakiña maisuak esaten dautse «ori euskeraz egiten dozuelako da» ta sarritan, amak batez bere, oso-osoan bere semea atzeratuta joatea euskera erabilten dabelako dala uste dabe, ta errozoizkoa da eurentzat ez ezaguna daben izkuntza baten irakasten badautsa. Emen argi ta garbi agertzen da gure izkuntzea zelan zapalduta dagon, ta au jazo eztaiten lege internasional bat dago, umeak jatorrizko izkuntzan ikasi bear dauala 10 urterarte, diñoana, lege au Españia'k be firmatu eban baiña...

Beste alde batetik Pop. Progr.'k erri baten izkuntza zapaldu ta bastertutea, dagonik gaiztakerik aundiana dala diño, erri baten nortasunaren aurka jokatzea ta zapaltzea dalako, au be argi ikusten da gure errian.

Europa guztian gure izkuntza zarrena dala iñork ez dau ukatzen 10.000 urte inguru emen ikusten dogu, arrisku aundiak eukiko zituala ta, oraindiño be bizi dala, baiña orrek ez dautso kentzen orain arriskuan egotea. Esate baterako latiña, orain 3.000 urte inguru sortu ete zan, ainbeste erabilli eben izkuntzea, oso galduta dago, griegoa bardin. Euskaldunak gitxi idazten dogu, lenengo liburua, euskeraz egin zana, «*Bernat Dechepare*» na izan zan 1.545 gn egiña, ordurarte ez zan ezer idatzi.

Orain ikusi daigun gure izkuntzaren arerioak zeintzuk diran. Gazteleraren indarra ta nagusikeria; izparringiak, urrutikuskiña, irratia ta abar, danak erdera egiten dabe. Baita euskeldun faltsoak be euskerea politikeagaz nastaten dabelako, euren ez-jakintza gaitik ez dauke nortasunik. Ez gaitezala ba geu be nastatu.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER'K

PRENSA TXARRA

Alkar ezagutu ezik, ez dago alkar ulertzerik. Ulertu ezetik, aldiz, gura izan galtzea ta gorrotoa sortzea datoz sarritan. Urrutiko bizilagunak, urruti dirala-ta, ezagutu arren ere, berotasun bardiñaz ezin maitatu. Urrekoak eta ingurukoak bear ditugu ezagutu, ulertu ta maitatu. Bestela, ez dagoke ezer onik lagun-artean.

Or Españi-lurraldea. Arraza askok osotua, izkuntza batzuk ornidua ta kultura ezberdiñak sustraitua. Arraza, kultura ta beste zertzeladak oso bardinezak izan arren ere, lati-kumeak diran guztiak errezto dabe alkarren berri. Izkuntza batetik bestera diranon izakera ta egokera aldatzea ez bai da lan nekeza. Euskaldunok, barriz, kultura-lurra-izakera oso bestelakoak ditugu. Ta ain bizigarri ta jantzigarri dan euskerea ez izan ain erreza beste izkuntsetara edatzeko. Ortik ulertu ta maitatu eziña. Izaro edo ugarte bat dogu gure izkuntzea ta, jakiña, inguruko beste danak ezezagunak gerta oi yakuz. Borondate oneko edo jakituri andiko besteak gaitz erdi. Jende arruntak, ostera, igaro eziñeko bide ori dala-ta, ez gaitu ulertuko edo, geienez, onak baiña lelo samarrak gareala usteko dabe, ziñez. Nola apurtu esi ori? Zeren bidez eraman besteetara gure errekako urak? Lagundu bearrean, bidea okertu edo sarratu egin dauskue orretan batzuk. Zertarako aipatu izenik?

Alaz ere, gaurko munduak bardin ez izatea onartzen daki, muzin izan ez arren.

Guzti orregaitik poztu egin gara Madrid'eko MUNDO CRISTIANO aldizkariak azkenengo zenbakian, abendukoan, dakarren alegintxoaz. Ea gure lurretako gizonak zer pentsatzen daben lagun-urkoatzaz.

Merezi dau-ta, itzez itz aldatuko dogu, euskeratu ere gabe: «Intelectualmente los vascos no han tenido buena prensa. Supongo que ello obedece en gran parte al carácter insular de su cultura. Algunos vascos eminentes —como Unamuno— han hecho mucho para subrayar esa insularidad y muy poco para tender puentes que nos dieran acceso a su mentalidad y a sus valores culturales. La imagen del vasco se resiente de una corriente supuestamente admirativa, que le reconoce toda la nobleza del mundo a cambio de negarle toda imaginación. Vamos a admitir, como defecto, una cierta conciencia de superioridad y proclamemos como virtudes más genuinas la consecuencia en el comportamiento y la gloriosa sanidad mental del pueblo vasco» (Alfonso Alvarez Gándara, abogado).

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

EZ NAU ALAITZEN

Jaun azkarrak!

Agur, zuen aldizkari orretan, argitara eman duzuen zertxobaitek ez nau asko poztu, ez ta alaitu ere

Euskerearen alde gabiltz ala ez gabiltz? Maite dugu benetan ala ez? Erantzun illuna datorkit nunbaitetik. Zergaitik geu geure aurka? Alkar zergaitik aultzen dugu? Alkar indartzea komeni izango litzakigu, ala ere indar lar ez dugu izango ta.

5n. zenbakian, 2n. orrialdean «Piper-zirik» (ez dakit nor dan), H dala eta ez dala diñon txistea ez zait asko gustatzan, eta ainbat gutxiago 7n. zenbakian, 2n. orrialdean diñona («jjjandik eta jjjem...») Txiste orrek mesedegarri diranik ez dut uste. Euskeratzaz seriedade pixka bat eskatzen diotzuet. Lenen eritxi-ezbardintasunak eta bereiztasunak aurrez aur, alkar berbaz, konpondu ezazuez, aal bada, bai H zaleak, bai H'aren aurkakoak, bestela ixiltzea izango da komeni zeuen burruka zitalakin euskaldun zintzo asko otzitu barik.

Ez noa, ez, iñoren aurka; euskera maite dut; beraz arantza guztiak kendu nai dautsadaz. Euskerearen batasuna bearrezko dugula danok badiñogu, guztiok baturik lan orren alde batera ta zentzunez ezin dugu jokatu? Geu euskaldunak batzen ez bagara ezin izango dugu euskerea batu. Izkuntza baten batasuna poliki-poliki egiteko gauza ta lana dago. Beraz, ezin gara arin ibilli, baiña euskalkiak guztiz euskalki-euskalkitu orduko zertxobait egin bearko da, besteen dana ukatu eta gaizkiartu barik. Jakituraren diktadura bearrezko da, baiña nor da jakituna? Ez dakit.

Agurtzen zaitue.

SEBAS ANGOITIA'K

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

EUSKAL HIT PARADE

Lotazilleko zeaztasunak Ares jaunagandik jaso doguz, 15'gnekoak eta illaren azkenekoak. Lenengo zati orretan Donostiako abesbatza «Orfeon Donostiarra» etorran aurretik, azkenerako baiña, Gernika'ko «Naikari» taldea geratu da garaille. Arek, salketa aundiagoa izan dau, autarki ta eskabide ugariago onek.

Irugarren, Estitxu, bere indarraren indarrez, ba-dau onek berea, ta bultzaka «fan» talde ederra.

«Urretxindorrak» urrengo, ez baiña txorrotxioak makaldu jakozalako, il erdirako bere disko barik geratu ziran saltokiak, eta barriak ez dira garaiz eldu.

Luis Mariano gero, aspaldian goiko mailletan lotuta. Xabier Madina, barria leiaketa onetan, illenen azken erdian gorakada ederra egin dausku, onek eta Carlos Mungia'k laguntza obea merezi dabe entzuleen artean; ia salketa utsetik lortu alizan dabe goian izate au.

Ara emen 1970'ngo. Lotazilleko mailladia:

1.—**Danok Lagun,** *Naikari.*
2.—**Ator, Ator,** *Orfeón Donostiarra.*
3.—**Bakarrik,** *Estitxu.*
4.—**Neska Zarrak,** *Urretxindorra.*
5.—**Ezin aztu,** *Luis Mariano.*
6.—**Baso-bidean,** *Xabier Madina.*
7.—**Aitor'en izkuntza zarra,** *Urretxindorrak.*
8.—**Aurtxo txikia,** *Carlos Mungia.*
9.—**Txamarra zartxo bat,** *Oskarbi.*
10.—**Ez kanta beltza,** *Benito Lertxundi.*



Gernika'ko NAIKARI taldea

Urrengo zenbakirako agindu dausku Ares jaunak, 1970'ngo laugarren urte-laurdeneko salketa neurria, ta aurretik ezin esan zein datorran garaille: Oskarbi?... Urretxindorrak?... Naikari?... gogor ibilli dira danok, azterketea amaitzean jakingo ei-dogu.

Bitartean, ara emen, Lotazillean garaille izan diran Naikari taldearen **Danok lagun** *abestiaren itzak:*

DANOK LAGUN

Egun sentiaren pozaz
mendi aldera
gazte taldetxo bat
izadiagaz batera
igaretzera ordutxo goxoak.

Mendiko zera bai ederra
an izaten da nai doguna:
Alkartasuna, umorea,
eta alaitasuna,
eta danok lagunak.

ASTI

KULTUR IRAULTZLARI BATEN NAIA DALA TA...

«Naiago nuen bat edo bi il bazituzten».

Gipuzkoa'ko uri aundi baten lagun bi alkar-izketan. Euretariko bat burrukalari trebea, kultur maillan, jakiña!

Burua belarrira makurturik besteari ei diñautso: «iri esaten diat baiña naiago nian bat edo bi il bazituzten». Ez da arritzekoa? Egia ete da? Bai jaunak, egia da ta ez da arritzekoa, lotsatzekoa baiño. Ederra kontua! Margoari begiratu barik, kolore guztietako erritarrak artega izan diran garaian; aldekoak eta zentsundun etsaiak otoi bardiñean alkartu diranean; mundu guztia bultzaka jarri danean, taldeko lagun batzuk «narrubizian» bizitza arriskoan jarri dabenean, epaituen artean eriotzarik izan ez daiten danok eskatu dogunean... orra or «kulturadun» gizon baten azken naia... bere lagunen Eriotza! Bere lagunen eriotza, ez baiña berea edo bere senide artekoa, bere anaiarena, ez; laguna izan arren auzokoarena!

Zer dala ta «gurari» ori? Ona emen iritzi zital onen mamiña. Erritarraren eriotzak biotzak samintzen ditu. Samintasun orreik «narruak» bigundu, biguntze orreik norberaren ideolojia sartzeko giroa aukeratzen dau. Sentimentuak gora-goraka jartzen diranean belarriak gortzen eta begiak lausotzen dira... iritziak eta ideolojiak nastatzen dira... orretarako bear zituan «gure sasi-burrukalariak» bere lagunen eriotzak.

Unibersidadean nere burua «reazionariotzat» salatzen daben «funzionarioak» (estaduren dirutik bizi diranak) irri-parre egingo dabe nere esanak irakurtean baiña bardin jat: Marxismo-leninismoaren «praxisak» erakusten dauanez «elburuak bide guztiak onak egiten ditu» Eriotzea bear bada... il! Baiña kontuz mutillak, bada ez bada, besteak aurretik bialdu... Kulturadunak gerorako gorde bear ei dabe euren jakituri guztia! Ai eurak! erriari bidea erakutsi bear ei dautse ta ezin olakoetan sartu! Euren jakituria dauanik, zelan aurkitu? Euren ideolojia nagusi danean ikusten dogu zer jazoten dan: Txekoslobakia, Tibet eta orain Leningrado'ko epaikundea. Badakigu zer azalduko dauskuen, Ipar-Amerikako baltzen bizi-modua, Ego-Amerikako errizapalketa, Vietnam'ko guda ganorabakoa... bai ta zer? Ondo ezagutzen doguz «demokratziaren» izenean egiten diran nabarmenkeriak. Nun dago baiña egizko demokratzia?

Dana dala ba-dago erri batetik bestera aldea. Begira beste barik Prantzi'ra, bertara... gu ez gagoz ango gobernu edo gizarteagaz konforme baiña euskaldunok, an, emendik joandakoak beintzat, arrera ona izan dogunik, ezin ukatu. Beste era batera itz egitea demagoji utsean sartzea da. An bere Erriaren nortasuna zapalduta dagoanik ezin ukatu, baiña angoa bigunagoa da, ala ez? Baliteke gero okerragoak izatea baiña orain ez. Aria galdurik baiña, urrunera jo dot. Nik gauza bat esan nai izan dot: Ia egunero egoten naiz espetxean semea dauken guraso batzuekin. Lasai dagoz eta adoretsu baiña... eriotzik ez dabe nai. Ta nik bere ez! Ez dot eriotzik iñorentzat nai ta gitxiago erritar batentzat, naiz pentzakera ezbardiñekoa izan. Biziak ez dute itxaropenik galtzen; illen «gerokorik» ez dogu ezagutsen, siñismenak diñoskuna izan ezik. Orregaitik ez dot eriotzik nai, askoz gitxiago erritarrak izan ezkero ta gitxiago oraindik «kidea» banintzake.

Baiña ikusten dogunez «kulturadun» taldeko batzuk, bere antxiñeko lagunen bizitzak gauza txikertzat daukez; mundu guztiko langilleen iraultzako katearen maillatxo bat, besterik ez.

Gutzat, eta parkatu «jakintsuok», euskaldun gazte baten bizitzeak ori baiño askoz geiago balio dau, naiz elburuak lortzeko bide ezbardiñak, luzeagoak edo ameslariagoak izan.

Eriotza nai dunak eskeñi daitela bere bizitza, baiña ez lagunaren odol eske etorri! Naiko da berbalapikuok!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKEREA

Urtarrillan 12'an Bermio'n izan giñan euskeratzaz berbaldi bat entzutera joan da, ainbat gazte batu zan bertan, kontuan arturik arrantzaleak ez dagozala, estudianteak bere ez.

Berbaldian zuzendari D. Martin Olazar izan zan, ederto azaldu zituan euskeraren arazoak eta gaixoak.

Azaldu eban lenengo puntua, zelan gure Sendia, Erria, Aberria, guk eginda aurkitu doguzen, geuk aukeratu barik. Orduan guk geure izakera guztia zor dautsagu, lenengo lekuan Sendiari, beragandik datorrelako erritasuna ta erria maite izatea. Baita bere, eginda aurkitu doguz oiturak. Erriaren izakera orreri errespeto aundia zor dautsagula uste dot, gure izakerean jabe dalako, baiña beti ez gara konformatzen gure errian izakerakaz, pentzakera ezbardiñekoak garalako.

Niretzat punturik ederrena izkuntzeana izan zan. Ta onetzaz esan eban, izkuntza bat ilten danean aberria arriskuan dagola, aberri batek bere izkuntza daukanean, aberri orrek beste batzuk gandik oso pentzakera ezbardiñak izaten dauz; esate baterako, ezin dau bardin pentza Kongo'ko gizon batek ta euskaldun batek, ez, euran erri arazoak oso ez bardiñak dira. Orduan, Baltz ori badator euskalerrira zer egin bear dau? Lenengo emen geratzeko ustez badator bertoko izkuntza ikasi. Orretarako euskaldunak artu bearko doguz postura batzuk eurentzat gogorrak izango diranak bear-bada: euskeraz egin toki danetan, eta beti entzuten badau, bera arduratuko da ikasten, baiña gure geixoa da biak dakiguzala ta bestea ondoan ikusita errukitu egiten gara, bere izkuntzan asiaz ta gurea bastertuaz.

Gero azaldu eban erri txkietan jazoten dana umeakaz, bere aita ta ama gandik ikasiko izkuntza bastertu ta iñoz entzun ez daben izkuntza baten ikasten asi, gero jazoten da umeak besteak baiño atzerago gelditzen dirala, ta jakiña maisuak esaten dautse «ori euskeraz egiten dozuelako da» ta sarritan, amak batez bere, oso-osoan bere semea atzeratuta joatea euskera erabilten dabelako dala uste dabe, ta errozoizkoa da eurentzat ez ezaguna daben izkuntza baten irakasten badautsa. Emen argi ta garbi agertzen da gure izkuntzea zelan zapalduta dagon, ta au jazo eztaiten lege internasional bat dago, umeak jatorrizko izkuntzan ikasi bear dauala 10 urterarte, diñoana, lege au Españia'k be firmatu eban baiña...

Beste alde batetik Pop. Progr.'k erri baten izkuntza zapaldu ta bastertutea, dagonik gaiztakerik aundiana dala diño, erri baten nortasunaren aurka jokatzea ta zapaltzea dalako, au be argi ikusten da gure errian.

Europa guztian gure izkuntza zarrena dala iñork ez dau ukatzen 10.000 urte inguru emen ikusten dogu, arrisku aundiak eukiko zituala ta, oraindiño be bizi dala, baiña orrek ez dautso kentzen orain arriskuan egotea. Esate baterako latiña, orain 3.000 urte inguru sortu ete zan, ainbeste erabilli eben izkuntzea, oso galduta dago, griegoa bardin. Euskaldunak gitxi idazten dogu, lenengo liburua, euskeraz egin zana, «*Bernat Dechepare*» na izan zan 1.545 gn egiña, ordurarte ez zan ezer idatzi.

Orain ikusi daigun gure izkuntzaren arerioak zeintzuk diran. Gazteleraren indarra ta nagusikeria; izparringiak, urrutikuskiña, irratia ta abar, danak erdera egiten dabe. Baita euskeldun faltsoak be euskerea politikeagaz nastaten dabelako, euren ez-jakintza gaitik ez dauke nortasunik. Ez gaitezala ba geu be nastatu.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER'K

PRENSA TXARRA

Alkar ezagutu ezik, ez dago alkar ulertzerik. Ulertu ezetik, aldiz, gura izan galtzea ta gorrotoa sortzea datoz sarritan. Urrutiko bizilagunak, urruti dirala-ta, ezagutu arren ere, berotasun bardiñaz ezin maitatu. Urrekoak eta ingurukoak bear ditugu ezagutu, ulertu ta maitatu. Bestela, ez dagoke ezer onik lagun-artean.

Or Españi-lurraldea. Arraza askok osotua, izkuntza batzuk ornidua ta kultura ezberdiñak sustraitua. Arraza, kultura ta beste zertzeladak oso bardinezak izan arren ere, lati-kumeak diran guztiak errezto dabe alkarren berri. Izkuntza batetik bestera diranon izakera ta egokera aldatzea ez bai da lan nekeza. Euskaldunok, barriz, kultura-lurra-izakera oso bestelakoak ditugu. Ta ain bizigarri ta jantzigarri dan euskerea ez izan ain erreza beste izkuntsetara edatzeko. Ortik ulertu ta maitatu eziña. Izaro edo ugarte bat dogu gure izkuntzea ta, jakiña, inguruko beste danak ezezagunak gerta oi yakuz. Borondate oneko edo jakituri andiko besteak gaitz erdi. Jende arruntak, ostera, igaro eziñeko bide ori dala-ta, ez gaitu ulertuko edo, geienez, onak baiña lelo samarrak gareala usteko dabe, ziñez. Nola apurtu esi ori? Zeren bidez eraman besteetara gure errekako urak? Lagundu bearrean, bidea okertu edo sarratu egin dauskue orretan batzuk. Zertarako aipatu izenik?

Alaz ere, gaurko munduak bardin ez izatea onartzen daki, muzin izan ez arren.

Guzti orregaitik poztu egin gara Madrid'eko MUNDO CRISTIANO aldizkariak azkenengo zenbakian, abendukoan, dakarren alegintxoaz. Ea gure lurretako gizonak zer pentsatzen daben lagun-urkoatzaz.

Merezi dau-ta, itzez itz aldatuko dogu, euskeratu ere gabe: «Intelectualmente los vascos no han tenido buena prensa. Supongo que ello obedece en gran parte al carácter insular de su cultura. Algunos vascos eminentes —como Unamuno— han hecho mucho para subrayar esa insularidad y muy poco para tender puentes que nos dieran acceso a su mentalidad y a sus valores culturales. La imagen del vasco se resiente de una corriente supuestamente admirativa, que le reconoce toda la nobleza del mundo a cambio de negarle toda imaginación. Vamos a admitir, como defecto, una cierta conciencia de superioridad y proclamemos como virtudes más genuinas la consecuencia en el comportamiento y la gloriosa sanidad mental del pueblo vasco» (Alfonso Alvarez Gándara, abogado).

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

EZ NAU ALAITZEN

Jaun azkarrak!

Agur, zuen aldizkari orretan, argitara eman duzuen zertxobaitek ez nau asko poztu, ez ta alaitu ere

Euskerearen alde gabiltz ala ez gabiltz? Maite dugu benetan ala ez? Erantzun illuna datorkit nunbaitetik. Zergaitik geu geure aurka? Alkar zergaitik aultzen dugu? Alkar indartzea komeni izango litzakigu, ala ere indar lar ez dugu izango ta.

5n. zenbakian, 2n. orrialdean «Piper-zirik» (ez dakit nor dan), H dala eta ez dala diñon txistea ez zait asko gustatzan, eta ainbat gutxiago 7n. zenbakian, 2n. orrialdean diñona («jjjandik eta jjjem...») Txiste orrek mesedegarri diranik ez dut uste. Euskeratzaz seriedade pixka bat eskatzen diotzuet. Lenen eritxi-ezbardintasunak eta bereiztasunak aurrez aur, alkar berbaz, konpondu ezazuez, aal bada, bai H zaleak, bai H'aren aurkakoak, bestela ixiltzea izango da komeni zeuen burruka zitalakin euskaldun zintzo asko otzitu barik.

Ez noa, ez, iñoren aurka; euskera maite dut; beraz arantza guztiak kendu nai dautsadaz. Euskerearen batasuna bearrezko dugula danok badiñogu, guztiok baturik lan orren alde batera ta zentzunez ezin dugu jokatu? Geu euskaldunak batzen ez bagara ezin izango dugu euskerea batu. Izkuntza baten batasuna poliki-poliki egiteko gauza ta lana dago. Beraz, ezin gara arin ibilli, baiña euskalkiak guztiz euskalki-euskalkitu orduko zertxobait egin bearko da, besteen dana ukatu eta gaizkiartu barik. Jakitunaren diktadura bearrezko da, baiña nor da jakituna? Ez dakit.

Agurtzen zaitue.

SEBAS ANGOITIA'K

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

KONTU KONTARI

KILI-KILI'REN ESAKUNAK

Euskalduna zara, zure belarriak
euskeraz ulertzen dabelako
eta zure ezpanak, euskeraz egiten dabelako.

Baiña, euskaldun osoa ez zara zu:
zure begiak euskeraz idatzitakoa
ez dabe ulertzen,
eta zure eskuak, euskeraz idazten ez dakie-ta.

Ez estutu!
Neuk egingo zaitut euskaldun osoa.
Erriko eskolan maisuak
erderaz irakurten eta idazten
irakatsi dautsun ezkero,
errez ikasiko dozu orain euskeraz be.
Egizuz nire esanak eta beingoan ikasiko dozu.

Kili-Kili naz. Ezagutzen nozu.
Ez naz jaio-barria.
Bilbo'ko S. Anton zubi ondoan
urte batzuk dirala jaio nintzan.
Eta bertako eleizan
KILI-KILI izena ipiñi eustan
neure osaba abadeak.

Euskalduna naz, eta euskerazalea.
Euskeraz irakurten eta idazten be, ikasi dot.

Jaungoikozalea naz.
Munduko guztiak maite dodaz:
zuri ta baltz, gorri ta urdin, txiki ta aundi.
Baiña, euskaldunak maiteago dodaz.
Eta euskaldunen artean
ume ta gaztetxoak, maiteen.
Zu, euretariko bat zara.
Artu egizu, ba, besarkada aundi-aundi bat.

Zeuri laguntzen natorkizu gaur.
Euskaldun osoa izan gura ei-dozu,
euskeraz irakurten eta idazten
ikasi gura ei-dozu.
Neuk lagunduko dautsut, ba.

Nere esanak egiten ba'dozuz
errez-errez, igarri barik,
ikasiko dozu.
Biok, euskerea aurrera eroango dogu.
Gero arte!

KILI-KILI'K

Atxuriko Izkuntza Ikasbide

Gizaldi onen asikeran, Bilbo'ko Atxuri auzunean ugelgille (guarnicionero) bat ei-egoan, ugelezko trezna guztitarikoak egiten ebazana, oso langille ona! trebea: Edeak, burt-edeak, abereen idunetarako txintxarri-ugelak, zaldi-treznak, eta orretariko narruzko lan guztiak tajuz egiten ebazana.

Bein, juan jakon bere lantegira bilbotar aundiki gazte bat. Gazte oneri, Ingalaterratik bialduta, eiz-txakur bi eldu jakozan, eederrak! euren iduneko ta guzti. Idunekuok, politak, emen ikusten eztiranetaikoak ziran; eta gazte oneri auxe bururatu jakon: beste bi egitea, areik galdu edo apurtu orduko.

Orretarako, joan zan, «Txori» eritxon ugelgiñarengana, eta «egunon» bategaz agurtuaz esan ei-eutson:

—Egingo ete zeunkidaz onelako iduneko bi?

—Bai, egingo dautsudaz, ba —erantzun eutsan «Txorik».

—Bada-ezpada, begitu egizuz ondo, ba... oneik Londres'en egiñak dira —oartu eutson gazteak.

Iduneko orrei adi-adi begiraturik, barrukaldean auxe irakurri eban, «Txorik»: «Made in England. Hand sewn».

—Ikusi dozu? —esan eutson gazteak.

—Bai, ikusi dot —«Txorik».

—Orduan... noiz etorriko naz euren billa?

—Datorren astean etorri zindekez.

Gazte aundiki au, txakur-idunekoen billa joan zanean, artu ei-ebazan eskuetan, eta arriturik esan, «Txori» ri:

—Ederto egin dozuz! Baiña... zer ipini dautsozu emen?

—Gazte, jakin dagizun, eztagola ingelesik, amerikanurik, ez txinorik, niri lanean irabaziko daustanik, irakurri egizu ondo zeuk be.

Eta iduneko barri bakotxean garbiro idatzita auxe irakurri eban gazteak: «ATXURIN EGIÑA. ESKUZ JOSIA».

Antza danez, Atxurin egiñiko txakur-iduneko areik ez euken «Made in England» dotoreen enbiririk. Ta bide batez, ikasbide ederra emon eutson aundikiari.

* * *

Izkirimiri au, Pinedo'tar Luken'ek eskuz emon eustan argitaldu baledi-edo.

Oorra ba, argitalduta; oso polita baida. Jaun au, euskalzale au, Bilboko Atxuri auzunean jaio ta azitakoa da. Bizkaiera txukunez mintzatzen da. Atsegiña berari entzutea.

Zu, Luken, itxaso zabaletan urik asko urratutakoa zara, ta andiko ta emetiko izkirimiri asko jakingo dozu. Bialdu egiguzuz; pozik argitalduko doguz.

Nai dozun arte.

ABELETXE

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik

Jarraipena

Aita-semea laister ziran barriz leengo asto sendoaren aurrean, eta aberea eroateko asmoz zanez, etxekojaunak salneurria ta beste gora-beerak saltzailleari itaundu eutsozan. Ostera astoa aztertzen ari zalarik, bat-batean oartu zan Yontxu galdu zala... Ba-zekian baiñan gure etxekojaunak umea nun idoro egikean, eta urrats ariñekaz errenkadako muturrera biurtu zan. Izan bere, an egoan. Yontxu gurea astotxuari besarkatuta esku batez bekokia igortziten eutsola.

—Yontxu! —deadar egin eutson aitak.

Baiñan umeak jaramonik ez. Astotxua estuago besarkatuaz aurpegiñoa aberetxuaren idun uletsuan ezkutatu nai eban. Orduan aita urreratu yakon esku bat buru-gaiñean ipinten eutsola.

—Goazen Yontxu...

—Aita astotxu au maite dot eta berak ere maite nau... eroagun gurekin etxera, neuk aziko dot-eta...

Ezetza umeari yaulkitzeko zorian zalarik baiñan, bere begien itxura eskaritsua barruaraiño eldu yakon, eta orra or nun ezpaitsu zer egin ez zekiela, astotxuak mutur biguiñaz eskuan laztan bat egin eutsola... Orduan gure etxekojauna konturatu zan berak be asto txikia maite ebala. Une artan abere gaixoaren bizitza gaizkatu zan eta nik neure poza menderatu eziñik, txio ta txioka asi nintzan goizalde eguzkitsuan...

Gero, etxekojaun ta ijitoaren artean berebiziko tratu bat sortu zan, eta noizbait bat etorriak, astotxua gurea izan zan.

Ijitoa alde egiteko zala, Yontxu gureak itaundu eutson:

—Zu, zergaitik dau astotxuak belarri bat beerantz okertuta?

Ijitoak atso baten aboa baiño baltzagoa zan esku batez burua txorkatuten ebala, bere barruko guzurtegian aztertu ta gero, bota eutson:

—Ori, izenik ez daukalako da...

—Izen bat emon ezkero, belarria zutunduko yako?

—Bai, izen egokiren bat ipintzekotan.

Dirua artu ta gero, ijitoa etxerako bidetik ostendu zan, galdutako astoki gozoaren ametsagaitik asperen luze bat yaulkitzen ebala. Aita-semeak barriz eurekin astakumea eroiela, enparantzako bidea artu eben, errirako kamioiaren begira. Pozaren pozez Yontxu'k noiz aitarekin noiz astotxuarekin, bakar-izketa bateri emon eutson.

Berandu samar izanik, Agiñalde'rako bide zuzena baso ta zelaietan zear artu neban. Gurera eldu nintzanerako bazkal ordua zan yadanik eta etxekoandrea berantetsia, begi ernaiez ataditik bidea aztertzen ari zan... Noizbait, Iturribieta'ko bide-okergunetik ara nun agertu ziran etxekoak, baiñan leendabizi etxekojauna ta bere alboan etorren Yontxu baiño ez neban ikusi. Nun zan ba astotxua? Azkenik etxekojaunaren lepoan ikusi neban! Urreratu ziranean eta gure etxekoandreak astakumea bere senarraren soin-gaiñean ikusirik, parrez asi zan esaten eutsola:

—Baiñan Mikel, zer dakarkiguzu... Katu bat ala?

Eta etxekoandrearen irri-karkar eresintsuak egurats gardenean zear barrieatu ziran.

Etxekojaunak astotxua lurrean itxi ta arnasa artzen eban bitartean, Yontxu gurea bere idorokunde barriarekin sukaldean ostendu zan, amamaren laguntza ta babesa aurkitzearren noski.

—Ume barrabasa...! —asi zan gure ugazaba— asto eder bat erosteko zorian nintzala, berak «katu» ori nai ebala... Azkenean neu be apur bat bigundu naz eta erosi dot. Asieran gauzak ondo samar gertatu dira, baiñan Bidegain'eko aldatzean, makaltasun utsaz edo, gure «katua» lurrean etzan da aurrera yarraitu eziñik. Orduan lepoan artu bear izan dot, baiñan Bidegain auzunea igaroten gintzazala, gu ikusten lagun guztiak azaldu dira. Nik ez dakit zelango itxura daukadan asto batekin lepoan, baiñan dirudienez oso ikusgarria izan bear dala uste dot. Ez dozuez emen, bota dabezan karkarrak entzun? Ezetz?... Ziur naiz errian bertan aditu dirala. Eta txantxetan bota daustazan eztenkadak!... Kokolo baten irri-par ganorabakoaz, bota dausten guztia entzun dot, baiñan barrutik!... Arraioa!...

Orraitiño, gure etxeko jaunaren asarrea ez eban luzaro iraun. Oi bezela, emazteak senarraren aurpegian bere begi eder-ederrak ezarri ebazan eta maitekiro esan eutson:

—Mikel, ondo egin dozu abere gaixo ori etxera ekartzean, eta ziur nago, beste urrengo batean bardin jokatuko zendukela...

Eta gure etxekojaunak asarrea joanda, oi eban bezela, emaztearen adats gaztainkara yoria maitasunez beterik samurki laztandu eutson. Gero sukaldean sartu ziran, eta atsegiñez astotxua ikusi eben Yontxu'k eskeintzen eutson bonbil bete esne batetik edan eta edan.

Arratsaldea zan yadanik eta laister mendien atzetik itzaliko ziran eguzki-printzek azkenengo urrezko agurra gure aran bardingabeari yaurtitzen eutsoen. Gorrimiñez yantziriko Lizarmendi'ko tontorrak ortze-zear galduta ebillan bere izar kutunaren billa, yoranez beterik laister asiko zan, eta urrun itxasoko beso ozkirriak gerturik ziran eguzkiaren eriotza laztantzeko.

Arresibe'ko larrean geldi-geldi, gure astotxuak inguruko edertasunari begira ta begira ari zan. Marra zurizka batez mugaturiko begi goxo-goxoak zituen, eta neska gazte batenak baizen ederrak, terziopelo alakoak ziran begi baltzaran aietan, barrutik etorkien pakezko argi-ixuri bat ikusten zan.

Yontxu bere kutuna ikustera etxetik etorren. Larreko ertzera eldutakoan, ustekabez geldi-geldi geratu zan. Bai gorputz txikia astotxuarena!... Eta benetan luzeak soin ñimiñoa eusten eben anka argalek!... Une batzuk olan egon zan umea, ta batbatean oiuka astotxuagana oldartu zan.

—Ankaluze, Ankaluze!... —esan eutson aren burutxua laztanduaz— orra or izen egokia, egokirik ba'da... Neure Ankaluze!...

Ene ameskeriren bat izango ete?... Nik ez dakit, baiñan alako batean oartu nintzan, gure Ankaluze'k belarri biak zutun-zutunik eukazala, ta auskorrak bai'liran Yontxu gureak astiro-astiro laztantzen eutsozan.

Gure aran ederra laister itzaliko zan gorrimiñezko irazeki bizi batean zetzan, eta Ankaluze'ren begietan barrutik etorkion argi-ixuria suzko txinpartetan biurtua izan zan.

AGINALDE'KO TXEPETXA

TXORIAK BE...

Txoriak amegandik
entzun daun abestia,
maitasunez abestea
beretzat poz guztia.

Beste batzuk politago
abestuten ba'dabe,
ez dau arein ondamurik,
berea geyen maite.

Toki batetik bestera
aldatuten danean
bere abesti gozoa
daroa biotzean

Eta ez bildurrik izan
ez yako ez astuko,
amagandik ikasia
onena beretzako.

Espetxeratu arren be
iñoiz kaiolen baten
itun aldi ta pozetan
berea dau abesten.

Ta gizon ankerrak nozbait
izkilluz il ba'dagi,
azken txio larria be
beren izkuntzan dagi.

Txoritxo begiko orren
ikaskizun ederra!
Amaren altso gozoan
ikasirik Euskera,
zer dala ez darabilgu
txoriaren antzera?

GABIREL

BARREGAIAK

Oartubako jakitun bat, euri-egun baten, busti-busti eginda, aterkin-denda batera sartu zan.

Aterkin bat erosi eta saltzalleari diñotso: auxe da... nire zuzenbidea ta etxera bialdu egiztazu.

Dendatik urten eta euri geiago artuez etxeratu zan.

* * *

Umeak: Ama, zelan erosi al izan ninduzun?

Amak: Aitak erdia ordaindu juan eta nik beste erdia.

Umeak: Eta ama-etxekoa zeiñek ordaindu zenduen?

* * *

Mutillak: I, neska Smidt aberatsaren alabea ete azena?

Neskeak: Ni? ez, bai zera...

Mutillak: Parkatu egidan, i maitatzen asi ete nintzoanan nengonan.

* * *

Anka-bakarra nok, eta eskoiko ankea jaukat. Eskerreko anka-bakarra daukan baten billa najabillak.

—Zertarako?

—Bion artean zapata batzuk erosteko.

* * *

Tirrin... Tirrin... Tirrin.

—Soiñekoak garbitzen dabezenen etxea da ori?

—Ez. Au ez da.

—Olan dala ez zaree txarri makalak!

* * *


Txinatar bateri:

—Zein dok ire izena?

—Dominstikun.

—Ori dokela ire izena?


—Izatez nire izena Ha-Ha-ttxum dok, baiña euskeratu egin juat.



TXAPELDUNIK BAI AURTEN?

★ Asko dabiz atzetik, bat

Joxe Mari Basualdo bera



Ona emen Joxe Mari Basualdo, bereberean, oiñaz arinka, orretan da nagusi. Lasterketa au, arabar onek irabazi eban, gogorra zan izan be.

Ziklo-kross'eko ekiñaldia aurreratuta dago aurten, onetzaz ez dago zer esanik ikusten dogun lez, baiña geroago ta indar aundiagoa aukeratzen doala ikusten da, euskaldunen artean batez bere. Batetik Basualdo arabarra ta bestetik Gorostidi gipuzkoarra, biok oso euskaldunak.

Basualdo'gan oraingoan ikusten dogu ludiko txapeldun izango dala, okerrik ez ba'dau beintzat. Olan jokatuteko Jaungoikoak bere gorputzeko indarrak aukeratu dautsazala esan leike. Niretzat, bere gaitasunik onena txirriña lepoan arturik arinka asten danean dago. Nik beintzat, au argi ikusi izan dot, ta Gorostidi'gaz izketan izan nintzan baten be, ori esan eustan.

Azaldu dagiguzan Gorostidi'ren gaitasunak be: Biotz andiko mutilla; bildurra zer dan ez dakiala dirudi. Gazte au, nire ustez, Basualdo baiño be obeto ikusten da zirkuito txikerretarako, Artxanda'ko lasterketan ondo argi itxi eban au. Basualdo'ri kateak urten eutsan baiña. Txirriñaren gaiñean agertzen dau bere indarra Gorostidi'k, bildurrak alde batera itxita. Basualdo'k ostera, oiñez-arinka asterakoan aurreratzen dau askoz be geiago. Bere bernak onetarako gertatuak dauzala esan leike, txirriñaren gaiñean ibilteko baiño.

Ziklo-krossa euskal kirolarientzat egiñda dagola dirudi. Aspaldiko urteetan agertu diran izenik geienak euskaldunak izan dira. Aztertu dagigun apur bat nortzuk izan ziran ezagunenak: Lenengo maillan Amalio Mendijur ipiñiko neuke, onek ez eban izan zorionik txirrindularitzan. Danok dakigu zelan izan zan bere eriotzea, baiña zerbait azalduaz barriz esango dot. Bere etxetik urrean Beasain'go bidean joiala lasterketa baten, Felix Gonzalez'egaz iges eginda, ta bere sendiak, bide ertzean egozala, azkenengoz agurtu eban. Berebil bat jo ta bertan aurkitu eban eriotza (G. B.)

Au izan zan ziklo-kross'eko txirrindulari onenetarikoa Euskalerrian. Gero, Anton Barrutia dago. Au be oso ezaguna da, bai bere txirrindulari aldian baita orain be, Kas'eko taldean zuzendarietariko bat da, ta onetzaz ez dago zer esanik gitxiasko ezaguna da-ta.

Gaur, txirrindulari giroa zerbait illun dagola esango neuke, batez bere Bizkai aldean. Zer jazoten da?



Argazki onetan Juan Gorostidi, kirol neketsu onetako bat irabazi ebanean. Obeti jakoz gipuzkoar oni lasterketa bizkorrak, biotzduna dogu-ta. Gora dator Gorostidi, lagun asko ditu, ta geiago be izango.

Lenengo ta bein, nagusiak, au da, Puig jaunak nai dauena auxe dala argi agertzen dau: Bere ustez, Españiko txirrindularien etorkizuna Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n dagola, ta oneri dagokionez, au ondo eskuratuta euki gura dau. Orretarako berari egoki jakozan gizonak jartzen ditu gorengo mailletan, andik, berak gura daben lez gauzak egiteko.

Zer egiten dabe Bizkai ta Gipuzkoa'ko lendakariak ba? Lenengo, Puig jaunagaz ondo izateko aren naiak bete, naita beti onak izan ez. Ta, batez bere, iru lendakariok ondoen alkartzen dira, euren gaiñetik baten bat lotuten ba'da, kentzeko izaten da, naita txirrindularitzari laguntasun aundia emon. Au da Epelguez jaunagaz jazo dana. Au dogu SVAC'eko lendakaria, Sociedad Vizcaina de Amigos del Ciclismo, berak egiña. Alkarte au barria da, baiña izugarrizko lanak egiten dabil, ez dago ezer esan bearrik bere lanatzaz, baiña zerbait esango neuke orretzaz bere, euren utsak pizka bat azalduaz: Alkarte onek, nire ustez, alde txar bat dauka, errietan dagozan beste txirrindulari alkarteak apurtu leikez-eta. Oneik bera baiño berago dagoz, esate baterako: Gernika, Zornotza ta Mungia'koak, beste askoren artean. Au egitea egoki izango ete da? Nire ustez ez: Zer izango litzake biar edo etzi, alkarte aundi au apurtuko ba'litz beste guztiak ondatu ondoren?

Orduan be egongo litzake zeozer aurrerantza jarraitzeko, baiña itxaropen andi barik; geroago ta motzago dago txirrindulari giroa, bidezabaletan ezin da ibilli, ta onek gogor apurtzen dauz txirrindulariak.

JOSE RAMON TA XABIER

BEITIA GORA DATORRAN

IZAR BARRI BAT

Igaro dan egun baten, Beitia ta Abasolo'tar Joxe Antonio, Atleti'ko ostikolari asi barriagaz izan naz, alkar-izketa labur bat egitera.

Oraindidiño, bere izena ez da asko entzuna, denpora gitxi daroalako lenengo maillakoen artean. Jokatzean, bere lekua defensa erdikoa da, ta Etxeberria zauritu arte ezin izan dau bertan jokatu. Baiña uste dogu Beitia'k balio aundia daukala, naita lenengo jokoaldietan ondo ibilli ez arren. Apurka ziurtasuna artzen doa.

Joxe Antonio, Bizkai'ko erri txiki baten jaioa da, Bedia'n, 1947'ko Otsaillaren 7'an. Ara ba, egun gitxi barru bere eguna, ta AGUR'etik bialtzen dautsaguz zorionik berocnak.

Gaztea zala asi zan ostikolari lez, Deusto'ko «Salesianos» taldean, maixu industriala ikasiaz batera. Urte baten, Bedia'ko taldeagaz be jokatu eban, Lemona'ko txapelketa baten, ta bertan lenengo saria irabazi. Deusto'tik Zornotza'ko taldera joan zan, Monreal eta Isuskiza'gaz batera. Talde orretan urte bat egon ondoren, Atleti'ko bigarrenera edo Bilbao Atleti'ra deitu eutsoen. Azkenez, aurtengo ligean asi da Atleti nagusian jokatzen.

Joxe Antonio mutil zintzoa da, bere zeregin geiena ostikolari izateari emon dautsona, ta orregaitik oso ondo jagoten dau bere burua, era oneko bizi-modua eroanez. Bedia'n jarraitzen dau bizitzen, aitagaz, amagaz eta anai zarragoagaz.

Alkar izketea egitera joatean, amak zabaldu daust atea, ta ondo-etorri bategaz toki zabal batera eroaten nau. Antxe dago gure ostikolaria idazti bat irakurten.

Ta alkar izketea onan izan zan:

—Zelan jokatzen zagoz une onetan? Al dozun indar guztiagaz ala geiago al dozula uste dozu?

—Asterakoan, lenengo partiduetan, soldadutzan nengoan lez, guztiz ondo ez nenbillen, baiña orain amaitu dot eta uste dot une onenean nagoala.

—Etxeberria osatuta gero jokatuten jarraituko dozula uste dozu?

—Nik ezin dot erantzun itaun ori, «entrenadorearen» eskuetan dagoalako.

—Orain arte jokatutako partiduetatik zein izan da zuretzako onena?

—Barcelona'gaz eta Atletiko Madrille'gaz bardin antzera izan dala uste dot.

—Eta txartoen jokatutakoa?

—Malaga'koa izan zan, an zoritxar aundia izan neban.

—Zelakoa da Iribar, lagun lez, jokoan eta andik kanpora?

—Atleti'n onenetariko bat da; laguntasun aundikoa gure artean. Iribar izango da niretzat zintzoenetarikoa gizon lez, eta geroago ta obeto aituten naz beragaz jokoan.

—Eta Ronnie Allen'etzaz zer diñozu?

—Gizon bearrezkoa dala gure artean; ni oso ondo eroaten naz beragaz.

—Zein izango litzake zuretzako gertakizunik aundiena?

—Liga'ko txapeldun urtetea, baita Atleti'n jokatzen jarraitzea be.

—Ara orain ostikoketatik kanporako itaun batzuk: Ba-daukazu emazte-gairik?

—Bai, Dorangotarra, ta Teresa da bere izena.

—Futboletik kanpora zer atseginduten jatsu geien kirol lez?

—Kirol guztiak atsegin jataz, baiña geien «cesta-punta» euskal kirola. Au, gatxa eta oso polita da.

—Eta musika saillean zer?

—Musika guztia da atsegiña, ta batez be gaurkoa, «modernua».

—Euskaldun lez zer diñozu?


—Etxean euskeraz aituten gara beti, emendik kanpora, euskaldun lagunekaz be bai, dakizuen lez.

* * *

Jarraitu ba aurrera olako bidean, eta ia laster gizon ospetsu bat izaten dogun gure erri txiki polit onetan.

Ateraiño lagunduten daust, eta zorionak eskeinduaz berantzako, milla esker emoten dautsadaz AGUR'en izenean.

ATUTXA'TAR BENJAMIN



TXIRRINDU-ARBAZTEAREN NEURRIAK

Sarri, aldatz-beretan bildur izaten gara. Ziurrago jokatzeko txirrinduaren tink-egoera ona bear, emen goikoak dira orretarako neurri ederrak. Au 56'ko arbaztearena da, aundi edo txikiago bear dabenak, sardearen aurrerakada ori dala garrantzitsuena gogoan izan: 65 mm. burpil ardatzaren aurretik lurrean.

1970 URTEA

Legeak dagintzen auan bideari jarraian, zuzendaritzari buruz ari dala, aldizkari onen zuzendari eta jaube José María Martín de Retana dala jakin arazoten dogu. Era berean, gure irakurleak jakin dagien, 1970'ngo. artu emonetan, eun eta berrogeta amasei milla ta bosteun ta iru laurleko jaso ditugula eta beste orrebeste emon aldizkari onen eralketan.

MENENDEZ PIDAL ETA EUSKERA IDATZIA EDO BATUA

Nork ez dau ezagutzen MENENDEZ PIDAL, Espaiñan izan dan izkuntzalaririk ospetsuena? Berak, euskera asko ez ekian, baiña, izkuntzalari jator guztiak lez, benetako euskera-zalea zan, baita euskaltzaiña be.

Illeak dira gizon onek euskera batuari begira eukan eretxia AGUR'en agertzeko erabagia nebala. Baiña beti itzi eta itzi...

Azkenengo AGUR'en Julio CARO BAROJA'kin «SOLASEAN» *izen-buru eban Jose LASA adiskidearen idaz-lana irakurri neban, eta berealaxe, Julio CARO BAROJA'ren eta Ramon MENENDEZ PIDAL'en eretxiak antzekoak diralako bear bada, burura etorri jatan nire erabagi zarra.*

Izkuntzalari onek orduan esan ebana, igarleitza balitzan lez, gaurko jazoera batzuetan beteten da.

Lenengo, MENENDEZ PIDAL'en berbak euskeratuko dodaz.

Aitatze luzea da, baiña zer galdurik ez dauko.

En torno a la Lengua Vasca *deritxon liburutik eta bere 52n. orrialdetik asita artzen dodaz. Bilbo'n 1.921n. urtean izan eban berbaldi baten esan zituan. Izenburuak eta lerro banatzeak neureak dira.*

Euskaltzaindiaren lenengo ardurea

«Euskaltzaindiaren lenengo ardurea euskera idatzi bat egitea zan.

«Euskera onek errialde guztietako euskaldun guztiak alkartuko zituan.

«Campion eta Brousain'ek sustraiz egindako idaz-lan bat ekarri eben eta lau euskalkietatik (bizkaiera, gipuzkoera, laburdera ta sulera) bat artzeko bidea baztertu eben, bat artzea beste irurak iltea izango zala ta, eta orretarako, bear bada, norberaren izketeari uko egin bear...

«Beste euskalkien izaera berezi guztiak batuko ditun euskalki barri bat egiteko bidea be baztertu eben.

«Bide bakar lez, erdi-bide bat ipinten eben: euskalki barri ori egin, baiña oiñarri lez euskalki bizi bat artuez, esaterako gipuzkoera, gero euskalki oneri besteen gramatika ta iztegi-aberastasunak arrerazo, bere izakereaz batera badatorz.

«Idazle oneik eurak be ba diñue euskera batu ori euskera izuna, ikasizkoa, litzakela, baiña eskoletan, izparringietan eta liburuetan agertzen danean, izuna ez dala izango uste dabe.

«Orrez gaiñera, Euskaltzaindiak gaurko adigai barriak agertzeko berba barriak egingo ditu.

«Benetan, izkuntza izuna izango dala argi ikusten da.

Euskera izunik ez

«Olako izkuntza bat erri baten izkuntza iñoz izan daiteke?

«Ezetz uste dot nik.

«Orregaitik, elburu ori lortzeko beste bide bat dakatzuet.

Izkuntzak Gizartetikoak dira

«Oiñarri lez, auxe esan bear dogu: Izkuntzea gizarteak emona, alkartetikoa, gizonen izakeratikoa dala, eta gramatikalarien asmakizunen gaiñetik dagoala.

«Geroko urrin-gizaldietan gizonak izkutza bakar bat izatea ba litzake, baiña orra eltzeko bidea, volapukak, esperantoak, idoak eta beste izkuntzanasteak egitea ez da izango.

«Euskera idatzia izango dozue baiña ori ez da izango beingoan egiña.

«Gipuzkoerearen eta laburdierearen naste bat egin, beste euskalkien alderdi onakaz osotu eta idazle batzuentzako liburu bat egitea naikoa erreza da, baiña ori, neure ustez, iñoz ez da izango erri baten izkuntza.

Artutako Euskerea ez apurtu

«Geiago oindiño.

«Nik ezintzat daukadan ori ba datorrela eta Euskalerriko gizaldi barriak izkuntza batu izun ori ikasi dabela egin daigun.

«Orduan Euskaltzaindiak betiko euskerea, bere zeregiña dan lez aurrera eroan garbitu ta indartu bearrean, euskera artua apurtu eta beste bide baten jarri egingo dau. Izkuntzeari bere baliorik geiena eta bere betiko sakontasuna kendu egingo dautso. Euskalki zar goragarriak, gizaldi askotarik euskaldunen baietz beroa izan dabenak, ekarri baten goratasunerako ilgo ditu.

«Euskera ekarri-barri onek, ez zar-aldetik, ez gizonen jakintzarako onuraldetik, ez leuke balio izango. Ume-gurari onexetarako bakarrik balioko leuke: izkuntza baragarri baten bidez, Europako sartaldeko izkuntza jakintsu eta eder biren bidez esan leikena esateko.

«Baiña ni, neure aldetik, bare nago.

«Ez gaurko euskaldunak, ez biarkoak, bizkaierea dan lako euskalki eder bat edo beste edozein euskalki illaz, euren barrua ez dabela astunduko.

Euskera batua ez euskera izuna

«Ori ta guzti be, euskaldunak euskera idatzia nai dabe. Eta lortuko dabe.

«Baiña beste bide batzuetatik.

«Euskal-jakintzaren izkuntza, nai ta nai ez, izun lez agertu bearrekoa dala zergaitik uste izan bear dogu?

«Landara bat, burdin-arizko ondoz eta margopaperezko orriz apaindu gura badogu, izuna izango da. Ezjakiñen begiak iruzurtuko ditu. Baiña, lenengo erain, gero zaindu eta gero berez aundi egiten izten badautsagu ez da izuna izango.

Beste izkuntza batzutan jazorikoa

«Gaur-egun euskerea idaztaro aurrean dago. Euskalki askotan zatituta dago. Gipuzkoera gaiñea artzen asita egon arren, ez dauko besteen gaiñetik dagon euskalkirik.

«Baiña gaur batuak diran izkuntza guztiak izan eben olako aldia.

«Normandi'tarrak, pilkardi'tarrak, provence'tarrak eta gaskoiak Frantzi-barrukoakaz zeiñek geiagoka ebiltzan, fantzierea guztien izketa izan orduko.

«Juan Lorentzo Segura'k leoneraz, Berceo'k erriojeraz, Alfonso errege jakitunak gazteleraz edo galitzieraz, Maestre Heredia'k aragoieraz, Viana Printzeak naparreraz, Mosen Pere Torrellas'ek katalunieraz edo gazteleraz idazten ebezan denporak gogoratu egizuez. Eta jokera ez bardin onein artean dabillen burruka denporan, astiro-astiro, gaztelerea, idazti asko daukazelako eta idazleak sarritan obeak ziralako, sartuez joian.

«Idazle batek, onena izan arren be, izkuntza idatzi barri bat egiten dauanik ez uste izan. Baietz diñue etorri aundiko berbalariak, baiña kondairazaleak, ostera, ezetz.

«Gaztelera zabaltzearen zergaitiak oneixek dira: Izenbako bertsolariak obeak ziran, Alfonso amargarrena orduko idazle-irakasleak baiño obea zan, D. Juan Manuel beste ipuinlariak baiño obea zan, Celestina *bere denporako beste elebarriak baiño obea zan.*

«Orrelantxe egin bear da euskera idatzia be; asikerea egin daben batzun erabilketarako naikeri lez egin gura ez bada, beintzat.

Euskaltzaindiaren zeregiñak

«Euskalkien idazte-lanak indartzea Euskaltzaindi batek errez egin leiken lana da.

«Baita Euskaltzaindiak egiterako ta zabaltzerako gogoa geien dakarren euskalkiaren indarra eratu eta berarizko laguntzaz lagundu be egin leike.

«Idazterako barru-indarrik geien daukana euskalki au izango da eta indar ori daualako euskerearen almenik aundienak beragandik eta beste euskalkiakandik aterako dituna bere bai, eta berezko aurrerapidetik ez gramatikalarien asmakizunetatik, aterako dau indar ori.

«Idaz-lan orreitatik urtengo dabe berez, bear diran berba barriak eta berba oneik bizi izango dira, ez jakitunak egindakoak...

«Euskalkirik bizien onen lanak guztien baietza irabaziko dau, beste euskalkiak indargetuko ditu, baiña bera ez da izango zuzentasuna egin dauan iltzallea.

«Biziari eta eriotzeari, Jainkoaren ardura eta izadiaren egite ixillez, osotu daitezan ta egiozue.

Eroapen bakoai onu bat

«Euskerearen kondaira-ikasteak eroapen bako baretuko ditualakoan eta eroapen bako orreik euro bearrezkoa uste daben aldatze gogor onetatik alboratuko ditulakoan nago.

«Aldatze, au, izaeraz lenagokoen maitale ez zarrakandik artua ta, besterik ez lez, zarren zale dan izkuntzaren aurka legoke.

Oarra: MENENDEZ PIDAL'en berba oneik erderaz eta euskeraz arrian idatzi bearrekoak dira benetan. Irakasle bardinbakoa zan eta maite orretan agertzen jaku.

OLAZAR Martiñ'ek

IDAZLEA NOLAKOA, KRITIKEA ALAKO

Euskaldun diran idazle askok erdar izkuntzetan idazten dabe sarri, eurak jakin dabe zergaitik.

Ori dala-ta kritika zorrotzak egiten jako Iñaki Linazasoro, José Arteche, M. Peña Orozko, Baroja... ta beste euskaldun asko

Orain ikusten dogunez Luis Mitxelen Jaunak idazti barri bat argitaratu dau «Esku dio sobre las fuentes del Diccionario d Azkue»: erderaz.

Atara barria da baita beste liburu ta «L'oeuvre poetique de Pierre Topet Etchelum». Idazti ederra bene-benetan Euskaltzaindiko bigarren lendakari dan Jean Haritchelhar Jaunak egindakoa... baiña *Prantsutsean.*

Aurrean izendatukoak idazleak dira. Azke Jaun bi oneik bere bai, ta Euskaltzaindiko gaiñera.

Lelengoen pekatua astuna ba'da Mitxelena ta Haritchelhar'ena askoz astunago Erderaz egiteko arrazoiak izango ditue neu baiña guk neurri bardiñegaz epaitzen dogu eta ez batzuk eta ez besteak jartzen dituzten ez doguz onartzen.

«Ez da euskalduna erderaz egiten dabena irakurri dogu nunbait... ba asi laikez euskaltzain jakintsuak euskerea zaintzen, eta kritika egiten dutenak idazlanak betaurreko bardiñekin ikusten.

«Salatari»



Cheques Regalo



Cheques de Viajero




Cuentas Corrientes


Domiciliación de Recibos


Libretas de Ahorro



Atención a la Mujer


Giros y Transferencias


Operaciones de Crédito


Banco de la Mujer

Zuk, diru-etxe bateti itxaro daikezuzanak baiñ gauza geiago eskeintze dautzuguz.

Gitxi diralakoan gagoz g

Ara emen emakumeentzat so tuak. Batzuk ez dira barriak. Ze baitek baiña, barrizten ditu: em kumeeri eskeñiak izateak.

Andreari begira, andereiño eg kien ardurapean, aukera barri gertatu ditugu, gure Banko b rruan.

Ta danau, emakumeak gizarte egin daben aurrerapenak poz arroruten gaitualako dagigu. On tara, gure omen eta goralp onenak, etxeko-andra zurrareng na ta bere buru-jabe danarengan bardiñean, doaz.

Gure eskeintzak, gaurko emak meari zor yakozan esker-on e laguntzaren agiriak dozuz.

BANCO DE BILBAO (BB)

Onek, emakumeen eskubidean siñisten d

Autorizado por el Banco de España.

ama gazte

Orretarako

ona emen jakintza bi:

aur-azikuntza

(erderaz puericultura)

aur-irakaspide

(erderaz pedagogia)

zuretzat:

aurra ondo azteko
ardura dozun ama gazte
izango dira emen
gaur eta aurrerantzean,
esango doguzanak

«zelako aurra alako gizona»

esaten da. Egi biribilla.
Gaurko aurra biarko gizona dozu.
Aurra zelan ondo azi jakiteko
asko ikasi bear dogu.
Onetzaz asko ikasiarren
iñoiz ez naiko.

aur-azikuntza

auxe irakatsiko dautsu:

aurra zelan azi ta zaindu

aur-irakaspide

auxe irakatsiko dautsu:

aurrari zelan irakatsi.



Bolon bat eta bolon bi
bolon putzura erori;
erori bazen, erori,
ezta geroztik ageri.
Bolon, bolon, bolona.
Gure aurra aur ona.
Bolon, bolon, bolon, bolon,
bolon, bolon, bolona.

BELTER disko-etxea
Lourdes Iriondo, abeslaria

baña, kontuz!

Jakintza bi oneik
ez dauskue dana irakatsiko.

Ez da bardin
Afrika'ko aur baltza
eta Asia'ko aur oria azi.


Ez da bardin
kanpoko erdelduna
eta gure erriko euskalduna azi.
Erriak ez dira bardiñak.

aurrak ez dira bardiñak

Euskal-pedagojirik gaur ez ba'dago,
zuk eta guk,
zuk eta euskal ama guztiok
euskal pedagoji ori sortu bear dogu.

Ona emen,
eta orretarakoxe:

ama gazte



EZKONTZA - AUSTEAK

Ogi ta kipula

Munduko ainbat aldetan ontzat artuta dauke diborzioa. Erlejiñorik gabeko erriak beti be ez dabez ontzat artu Erromako Elizaren ezkontza-legeak. Euren ezkontza-bizitzak ez dau mugarik. Oraintzu baiña danok arrituta geratu gara Italia'ko agintariak —erri-ordezkariak alegia— diborzioa ontzat artzeaz. Non eta Italia'n. Aita Santuaren musturretan. Matrailleko ederra emon dautsoe Elizari. Diborzioagaz geien emakumeak galtzen dabela esan oi da. Ez dakit ba. Ara.

Bide asko dira munduan dirua egiteko, dirua geitutzeko, millonarioa izatera eltzeko. Kimelak egin eta igarri... Argia danak negozioa jarri... ta diru-mordoa egin urte gitxitan. Edo zuzengetasun-bidez besteari kenduta norberaren kutxea bete-bete egin. Munduan bide asko asmatzen dira dirua egiteko.

Legetik Gaiñezka

Amerikan bide bakana asmatu dabe emakumeak. Onek asmatuko ez dabenik! Bide bakana da baiña bai lotsagarria be; zati bi ditu bide onek: lenengo ezkondu, gero auzitegian banandu ezkontzauste-diborzioa eskaturik eta gero dirua eskaturik, beste urrengo baten be beste ainbeste egiteko. Ondorea: zenbat eta diborzio geiago, diru geiago. Auxe egin bear da ba: sarri ausi ezkontzea ta gero auzitegikoen biotz ona ta errukia itxaron. Ez da besterik. Argi dago ta egia dala ikusteko Amerika'ko emakume batzuk, batez be zineko irain-jainkotxuak iritxi dabena jakitea naiko da.

Aragi salketa

Ezkondu ta ezkontza austea dirua egiteko bide ona dala konturatu dira ta majo engaiñatu dabez Hollywood'ko gazte jaiki-lotsagaldukoak. Ona batzuk agirian. Iru milloa ta seireun milla peseta emon bear izan zituan Gregory Peck'ek ezkontza iztearren. Zortzi milloa ta lareun milla peseta Frank Sinatra'k. Iru milloa Marlon Brando'k. Gene Kelby'k ogeitasei milloa emon eutsazan batera Betsy Blai'ri. Willian Paley'k larogei ta amar mi-



lloa Dorothy Hart'eri ta eun eta irurogei milloa Vintrope'k Bobo Rochefelle'ri.

Au dala-ta ainbat eta ainbat emakume millonariak egin dira. Silvia Harker laugaz ezkondu ta banandu zan. Gaur arek baiño aberatsagoa da.

Abirik ez

Lotsagarria benetan. Maitasuna merkatuan jarri da ta zelako merkatuan. Diruagaitik egiten dira ezkontzak eta diruagaitik ausi. Bide zikiña au dirua egiteko. Atxaki txiki bat... ezerez bat naiko. Irain aundia gizartearentzat. Ba-dira zorionez, ba-dira gure euskal-errian ezkongai ta ezkondu onak; legebarruan bizi-diranak. Toki batzuetan dirua sastegira jaurtzen dabe ta beste batzuetan bizitegirik ez... ta ezin ezkondu. Munduko gauzak! Ta seme-alabak?

GOIRIA

ZEREN BILLA...

Gizaldi askoren gora-beretan sortu ziran erriak. Geure begien aurrean daukaguz lurra ta itxas ertzak. Ta bitzuok ditugu ezbardiñak era askotara.

Lur beroak, otzak, tontorrak, lauak, aberatsak, txiroak, berez, olantxe sorturikoak. Itxas ertzak be era bardiñean otzak, beroak, gogorrak, bigunak, politak, zakarrak.

Gizonak bizi egin gura dau. Ta bere berezko egarri onetan, arat-onat, lurraren egalak beretzat artu zituan. Zabaldu ta agindu lurrean, guztiori guztiontzat da-ta.

Gu bizi garan lur alde ontara be lagunak eldu ziran, gizon eta andra. Ementxe itxas sendo ta mendi arte gogorretan euren bizia oiñarritu eben.

Al eben bestean euren erako bizitza leza zulo ta inguruetan eratu eben. Millak eta millak urteetan sortu eben, gaur, euskal bizitza deitzen dautsagun bizikera.

Emengo itxas latz eta mendi gogorren erara tajutu eben euskal-batzarraren bizia. Bertara begira nozki, ta bizi ziran tokiko gauzekaz baliatuz. Bidezkoa zan legez euren almen, inguru ta gora-berekaz sortu eben erria. Emen Euskal-erria agertu zan bere jakintza, izkuntza, legedia, aginpidea ta izakeraz orniduta. Lurraren beste egaletan, era bardiñean, beste erri asko sortu ziran enda ezbardiñak eratuaz.

Mendiei dagokien erara, emengo gain eta arruetako aizeen eraz, lur ontako eguzki ta otzberoen aginduz, bertako bearrak eta bizi-giroak eskatzen eben gisara, euskaldunen bizia ugaldu zan.

Mendi ederrak ditu gure lurrak, baiña batzuk dira gaillenen. Gorbea ta Anboto, Aitzkorri ta Izarraitz, Aralar ta Urbasa beste askoren artean gure lur indarraren kemen lez agiri dira. Beti adoretsu ta gogor aize guztien aurka, tinko, iraun dabe. Euren biziaz, iñoz, lotsatu barik, bizi-ki ta sendoro zaindu dabe euren magalpean dagon Euskal-erria.

Euren izenik ez dabe ukatu gaur arteraiñoan. Euren izatea ez dabe baztertu gaillurren artean. Sortuak izan ziranez ta gaur diran lez, kementsu agertu dabe, beti, euskal lerdentasuna, iñoz, berezko euskal izatea ukatu bagarik. Ez geiago ta ez gitxiago, sorreran artu eben bizia onartu ta berari eutsi dautsoe zintzoro, ekaitzen artean.

Euskal lurrean lez euskal gizadian izan ziran eta ba-dira izar batzuk beste batzuk baiño argitsuagoak. Bakotxak artzen ditugu almenak, geure Egilleak emon gura izan dauskuzan erakoak. Ez genduzan nai izan ta ez genduzan eskatu. Geure ezer-ez ta ez-jakiñean, ogasunez orniduta, ementxe, agertu ta geldi-geldi, esnatu giñan.

Batzuk buruz jakintsu izateko jaio ziran. Pilosopu edo jakintzazale. Urtziztilari, kondairalari, matematiku edo karkulari eta abar izango dira euren bizitzan.

Orain almen orrek landutea dagokio lagun bakotxari azkenengo unetaraiño. Bestelan, ondasun orren emoilleagaz zordun geratuko litzakez. Gizon kaxkar legez jokatuko leuke ba euren kidekoen artean.

Nuntar legez landu bear dau bere izatea?

Gandik, Indiatarra zanez, barru-barrutik bere erria maite izan eban. Bere izatea, lenengo, Indiara begira, ondo landu eban. Ta norbere erriari on egitearren, gorputz-gogo-bizia, osoosoan, opaldu zituan. Ori dala-ta, gaur, bere gorputz autsak India'ko lurraren gain zabaldurik, bere errikideen aita betirako izango da. Gizon aundia. Egi ta azkatasun gizona izan zan. Jokabidea berez da argia.

Gure jakintsuak, edozein dalarik, zer bide aukeratu dabe gaur artean? Euskal gizategi aldra onegaz mindu ta arduratu ete dira? Eta erri bakotxak norbere bizitza agertzeko daukan izkuntza landuteagaz zer?

Askok eta askok beste bide bat aukeratu dabela dirudi. Ama-lur euskalduna seme orrei begira dago. Min dau, berak sorturiko seme-alabak amaren bizitza ederrez ta izkuntzaren jantzi jatorrez ez arduratu bearrez.

Zeren billa eta doaz, batzuk ortik eta besteak andik?

Gizartean sarriegi ikusi doguz gazte ta ain gazte ez diranak, euren aita ta amagaz lotsatuta, zartzaroko arazoagaitik, edota euren artu-emoneko lagunak baiño beartsuagoak ziralako. Au ez da gizontasuna ta ez onoimena bere.

Gure ama urteen buruan barri barria da. Oso maitagarria, Gure izkuntza erbesteko jakintsuen artean, beti, bitxi eder bat izan da. Zergaitik baztertu nai ete zaitue zeure semerik argienetako askok eta askok?

Urriñean ete dagoz gauza aundiagoak? Urriñean gorapen atsegiñagoak? Nire amaren bizitzak baiño auzokoaren txaloak ene gogoa obeto asetuten badauste, nire amaren amatasunak ni, iñoz, ezin onetsi al izango nau.

SOLOZABAL'DAR PAULIN

IDAZTI BARRIAK

Egillea: Pedro PUJANA.
Izena: EUSKAL ADITZA BIZKAIERA-FLEXIONES DEL VERBO VASCO VIZCAINO.
Irarlea: GRAFICAS BILBAO. - BILBAO.

EGILLEA

Pedro PUJANA abadea da. Bere ikastedenporetan ezagutu neban. Biotz oneko eta buru argiko gizona. Erlejiño-gaietan oso arduratuta dagon abadea. Gaur Morga'ko baserritxuan txanburu da eta antxe bizi da bere anaiagaz bakez eta lan egiñez. Inguruko abadeen ordezkari aukeratua izanda.

Oleta'n jaio zan. Arabarra da ba jaiotzaz, baita sendiz eta biotzez euskotar eta euskaldun benetakoa be. Oleta'n, Araba izan arren, oindiño gaur be, euskera egiten da eta euskera oso jatorra egin be.

Pujana edo Puxana'ren lanak sarri agertzen jakuz AGUR'en. Laguntzaille dogu aldizkari onetan, batez be izkuntza arazoetarako. Oso lanpetuta egon arren, bere idazletzeari ondo eusten dautso.

Euskerearen geroak itxaropen aundia izan leike idazle onegandik, langille jarraitzen ba' dau eta beste lan batzuk astia kentzen ez ba'dautse beintzat.

LIBURUAREN EGITUREA

Liburua ez da luzea. 128 orrialdekoa.

Lenengo AZKUE'ren eta Severo ALTUBE'ren itz eder batzuk dakarz, gero sarrerea egilleak berak egiña, ZER ETA ZERTARAKO bere izenburua dala.

Zazpi zatian dator liburu au: 1.—Euskal-aditzaren oiñarriko jakingarriak. 2.—Norberagango aditz laguntzallea. 3.—Besteaganako aditz laguntzallea. 4.—Norberagango erabateko aditza. 5.—Besteaganako erabateko aditza. 6.—Aditz utsdunak. 7.—Idazle jatorrak erabillitako jokoak.

Lenengo zatian Euskal-aditza ulertzeko jakingarri bear-bearreko batzuk dakarz: Zearitzezko eta erabateko aditzak, aditz-izenak, aditz laguntzalleak, aditzaren aldiak, NOR eta NOR-NOK jokoa, oiñarri diran aldiak eta eurekandik datozenak...

Beste zati guztiak egitura bardiña dauke: jokoa eta joko oneri begira jakingarriak. Jakingarri oneik AZKUE'gandik, Severo ALTUBE'gandik eta idazle jatorrakandik artuak edo bere buru argitik ateratakoak izaten dira. Arturo CAMPION, ZAMARRIPA, Joseba INTXAUSTI, PP. VILLASANTE, ITURRIA ta besteren batzuk be noizean bein aitatzen dira.

IRARKEREA

Idazti au arrokeri barik, baiña ondo irarrita eta polito apainduta agertu jaku: gaiñea baltzez, orlegiz eta zuriz apainduta espata-dantzari bat erdian dauala. Zatirik zatira apaingarri egokiak. Azkenengo orrialdean, bere sendiaren ikurriña ta abizena.

Irarruts batzuk berarizko ingitxu baten datorz eta «Beste okertxo batzuk be ba dira, baiña irakurleak berak errez zuzendu daikez» diño.

Eun lauerlekoan saltzen da liburu au. Merke dala uste dot eta onetan beste askorentzako jarraibide izan daiteke gure Pujana.

ALDERDI ONAK

Aztertze-aldetik, analisis-lanean, sakon sartu da euskal-aditzaren barrura egillea, batez be erabateko aditz laguntzallean zer ikasi asko eta onak agertzen dira: aditz laguntzalleak zeintzuk dira: *edin, izan, ukan* edo *edun, egin*, batzuk diñoenez baita *eutsi* bere, ta abar.

Zeintzuk diran oiñarri lez agertzen diran jokoak eta zeintzuk oneitatik datozenak, argi agertzen dau.

Jakingarrietan noizean bein aditz jokatuen aztertze edo analisis oso egokiak egiten ditu.

Onen lako lan baten bearra izan dogu eta oso onuragarria izatea be ba leiteke: euskera baturako bidea geure euskalkia ondo ezagutzetik asten da. (7n. orr.).

ALDERDI TXARRAK

Jakingarriak erdera utsean datorz. Zergaitik ete da? Errezago dalako? Ori alperkeria litzake. AZKUE'k orrelan geienetan egin ebalako? AZKUE'n jarraibide onak artu daiguzen, baiña ez berak izan leikezen utsak. Zergaitik ete da...? Euskal-barriak ikasi dagien? Orretarako lan sakonegia dala uste dot. Euskaldunak ez diran jakitunentzat? Or ba leiteke onura apurren bat izatea.

Baiña, neure ustez, txarto edo ondo, gero osotu eta garbituko dan euskaliztegi bat egin bear dogu eta ori sekula ez dogu lortuko lanak erderaz egiñez.

Analisis aldetik aztertze sakon bat egin ba dau egilleak, bateratze, sintesis, aldetik txirotasun bat ikusten dot idaztian. Euskal-aditzak joko oso jakintsua baiña adigaitxa dauka. Ez ete dago geiago erreztuteko biderik? Baietz uste dot. Bear bada lan au oiñarri dala, besteren batek ori egin daike. Bilbo'ko lenengo Gotzain izan zan Casimiro Morcillo'ren berbak jatortaz burura, bere euskera irakasle izandako Eusebio Martija'k ez dot uste ukatuko ditunik: «Aditz oso jakintsua daukazue baiña bere aurka pot egiten dot (me estrello).

Aditz-jokoen aztertzeak ondo egiñak dirala esan dot. Ederto letorkigu aditzjokoen aztertze utsez egindako idazti bat bere. Ori aditza ikasteko bide bakarra, edo errezena beintzat, izan daiteke. Egingo al dausku lan au gure PUJANA'k.

Ika-jokoa ez dakar idaztiak. Barriro itauntzen dot: Zergaitik ez? Gatxa dalako? oindiño sakondu barik dagolako? gitxi erabillia dalako? Luzetu ez egitearren? Baiña ika-jokoa andrentzakoa eta gizonentzakoa, euskerearen aberastasun aundi bat eta berezitasunik ederrenetariko bat da. Baita oindiño Euskalerrian naikoa zabal dago. Galtzen itzi? Ez orixe. (Irakurri 8n.orr.).

Urrengo argitaraldian ipiñiko al dau egilleak ika-joko au.

AZKENA

Gizonen egiñak an daukez euren alderdi onak eta txarrak. Pujana'ren idaztiak bere bai. Baiña poztu beite egillea. Benetan lan txalogarria da bere lana. Euskerearen aurrerapidean eta batasunerako bideetan bear-bearrekoa, euskaltzale guztien jakituri barruan eta euren liburutegietan sartu bearrekoa. Pujana' gandik itxaropen aundia daukagu. Liburu au urrengo argitara-aldietan obetuko al da, argitara-aldi orreik egitekoak badira. Eta beste lan asko egiteko almena dauan ezkero, egingo al ditu, gure izkuntza-gaiak ondo aztertzeko eta euskerearen edertasunak jakitunai ta ezjakiñai agertzeko.

OLAZAR Martiñ'ek

APURTU?

Zer egin ez dakiala dabil Mikel. Zer egin ez dakiala idatzi daben ipuiarekin.

«Ez dok ipuiña au. Ipuiña eta ezer be ez. Apurtuteko eta bestetarako ez jok balio onek».

Esan bai, baiña apurtu ez.

Lontzi adiskidea etorri jako, artegatasun orretan dagola.

—Zer jazoten jak «Mikel?

—Ez jakiat zer egin ipuin edo danadalako onegaz. Apurtzekotan najagok.

—Erakutsi dak.

Eta irakurri ta gero Lontzi'k Mikel'en:

—Ez egik apurtu.

—Ezetz?

—Ez —eta gitxiago be. Badakik zer entzunda naguan ni «N» euskal idazlearen ipuiñai buruz!

—Zer?

—Gatz aundi bakoa zuala «N», ipui-idazti moduan.

—Ez dok egia izango ori!

—Benetan diñoat, Mikel. Neuk entzunikoa nok ori, ta edozeintzat ez jaukagu ori esan juana.

—Ez najuan siñistuko «N»'ri buruz olako iritzirik.

—Iritzi-emotellien artean danetarikoak jagozak Mikel. Batek ikusten ez dabena, beste batek ikusten jok. Modu batera ikusten dana gaur, beste era baten be bai urrengoan. Norbera, bere iritzilaririk txarrena, norberaren gauzak ezagutzeko. Besteai be itxi bear jakoek euren iritzia emoten.

Ixilik Mikel. Eta Lontzik:

—Gauza onak be apurtzen juezak iñoz idazleak. Izkuntzaren agiritzat be gorde bear leitzakeza idaztiak, besterik ezean. Geroak esan dagiola...

Eztau apurtu Mikel'ek gaur egin daben ipuiña.

Eta entzunikoak entzun eta gero be zer egin ez dakiala geratu da.

Beti olakoxe zalantzetan Mikel. Zenbat eta zenbat euskal idazti apurtu ete-dauz azkenengo urteotan!

Ondo ala txarto egin ete-dau orrekaz apurtze orrekaz?

ñapur-zarra

LUIS CASTRESANA'REN LAN AUTUENAK

Dirudiñez, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k, bere «Obras Selectas» bilduman, Luis Castresana'ren elebarri barri bi, ADIOS eta RETRATO DE UNA BRUJA, laster agertuko ditu; kritikoen eta irakurleen artean ain gogotsu artuak izan diran idazlanak

Ara, bitartean, emen, San Salvador del Valle'ko elebarrigille aundia dan onengandik argitaratu ditugun idazpuruak:

ELOGIOS, ASPEREZAS Y NOSTALGIAS DEL PAIS VASCO. Bere Lan-Autuetako lenengo atala. Euskallurreko milla ta bost ikuspegi zirraratsu. *Baroja ta Unamuno'ren ondorengo itzal aundienetariko euzkotar idazlea.* («Cosmopilis», 1970-Urtarrilla).

EL PUEBLO OLVIDADO Y OTRAS NARRACIONES VASCAS. Lan-Autuetako bigarren alea. Elebarri labur bi ta amalau ipuin, euskal giro ta arduraz ornituak. *Idazle zurra, elebarrigille benetalari ta jatorra.* («Revista SP», 18-1-70).

EL OTRO ARBOL DE GUERNICA. («Miguel Cervantes» sariduna). Irugarren alea au. Gaztelerazko elebarritzan arrakasta aundienetarikoa. *Gizaldi onetan gaztelerazko elebarri gorenengoa.* («El Norte de Castilla», 27-10-68). *Ogetamar azken urte oneitan, gazteleraz argitaldu dan elebarririk onenetarikoa.* («Le Monde», Paris, 4-5-68).

CATALINA DE ERAUSO, LA MONJA ALFEREZ («Real Academia'ko «Fastenrath» sariduna, 1964 eta tartean argitaldu ziran bizitz-edestien artean). Laugarren alea au bere bilduma orretan. Osotuta, gelgarri ta adigaitz zan euskal-emakume orretzaz lenengoz argitaratzen dana. «*Monjaalferez*» *aren nortasun arrigarri ta txarmangarria, bere aldiko izakera ta notiñen artu-emonetan biziaren biziz garden argitaratzen dan benetako bizitz-edestia.* («ABC», 27-9-68). *Castresana'ren idatz-gaitasuna nabarmentzen da barriro be, bizitz-edesti onetan; ez da ezetan be elebarri bat, baiña elebarri on batek damoskun atsegiñakin irakurtekoa.* («Arriba», 6-10-68).

Onetariko idazlan eragingarriak erosi nai daikezanak, azalez zoragarriro jantzitakoak, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA argitaratzaillera eskatu daikez: Apartado 1510 - Bilbao, baita berak oi daben idazti-saltokira be.

EUSKAL-SUKALKINTZATZAZ ERABATEKO IDAZLANA

LA COCINA VASCA, *Ana María Calera*, Itzaurrea *J. M. Busca Isusi'k*, Euskal-Sukaldaritza Anaiarteko Lendakariak.

Euskal lapikoetako bilduma ederra ta benetakoa; milla ta geiago egostearau, erraz ulertu eta egostekoak. Lan onetzaz, Busca Isusi'k itzaurrean diñoana: *Curnonsky, prantzez sukaldaria, gure egoskerari buruz eten bako goralpenetan dabil. Ez da ez alperrik izan, Europa'k gaur arriarokoegaz daben zubirik onena euskalduna izatea..., Azkenen galtzen diran oiturak jan-erak dakarrezanak izaten dira... Jakinbidetik zuzen ososoan, Domenech'ek gaskonen eta euskaldunen sukalkintzak alkartu al-izan dauz, eta ortik ludiko garrantzi aundienetariko jan-gintza sortu da... Ana Maria Calera'ren lana erraldoia da. Ana Maria'k sukal-idazti asko emon dauskuz ta saldu be, oraingo au baiña, nere ustez, gaur arte lortu daben lanik zintzoena da... Ez dau sukalde baztar bat be utsegin. Bere idazlan au sulkaldetik be urriñago —ta ondo gaiñera— doa, iñoiz enda-jakintzaren bideetatik zear... Arraiñentzazko atala, ososoa ta garaienetakoa da. Ez dira ba txantxetan arraiñak izan Euskal-Sukalkintzako pitxi, ta ludi zabalean jaso daben izen aundiaren lenengo eragille... Bere jakintzea, ta ain ederto ezagutzen dituan lenagoko idaztietatik aztertuak dakarraz. Ta ona emen idazti eder au, argazki zuri-baltz eta margodunegaz lagun, ikusgarria. Gipuzkoar emakume onek egin dabena ez da nere ustez iñoiz egin izan au¿amendiko gure erri onen sukaldea adierazteko.* Or, argi, garbi, erraz ta margotsu datorran idazlan au, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k argitaratuko dau.

«H gabeko umoria»

Linazasoro'tar Iñaki yaunaren euskal-liburua irakurriz amaitu dot. Ba daukaz beste liburu asko, be; baiña erderaz. Auxe da Euskerazko lendabiziko liburua, H. gabeko umoria».

Irakurtzen nengoanean, beste liburu bat etorten yatan neure burura: «Pernando Amezketarra, bere ateraldi ta gertaerak» deritxon liburutxoa, Muxika'tar Gergori yaunak egiña.

Duela berrogei ta lau urte, argitara eban yaun onek Pernando'ren liburua. Orduan lenengo aldiz; eta gaur ba dauka boskarren argitaldia, Zarauz'ko Itxaropena»n irarria.

Erriak maite izan zuan orduan eta maite izan dau gero be, Pernando'ren ateraldien liburutxoa. Berrogei urtetan, bost argitaldi. Ez da gutxi euskerazko liburu batentzat.

Eta zelan zabaldu izan da ainbeste...? Itaun oneri erantzuteko, esaterako bat ekarriko det Leitza'ko errian gertatua orduan, liburutxoa lenengo aldiz argitara zanean.

Leitza'n orduan «Zortziko» eritxon taberna andi bat egoen eta orain be ba dago. Ba, taberna artan, domeka-illuntze batez, txikitoak edaten egozen guztiei nork edo nork Pernando'ren ateraldiak irakutzen eutseezan...

Gizonek eta mutillek atsegiñez entzuten ebezan. Neuk be gau artan tabernako gela baten lo egin neban, ta ondo dakit orregaitik. Orra ba, gau artan bertan amabi iyeki saldu zirean. Orduan orain baiño gutxiago irakurtzen zala Euskeraz kontuan euki bear dogu. Eta olan, amabi iyeki saltzea, gauza andia zan denpora areitan.

Ba neban beste zer edo zer zio, Muxika'tar Gergori yaunari idazteko; eta era batez, barri pozgarri onen kontua, be, emoten neutson neure eskutitzean. Eta ona zelan erantzun eustan. Gai oneri buruzkoa bakarrik ipiñiko dot: Donosti, 1927-Garagarrilla, 4.—Yurre'tar Julian A.'ri. Iruña.

«...Eskerrak PERNANDO gatik diozunagatik. Nik ere ala uste det: euskera zabaltzeko orrelako liburuak bear dirala: errexak eta alaiak. Ni ere arro xamarra naiz batzuetan, eta orain arrotasun au daukat: liburutxo ori baino obeto idatziak eta jakintasun geiagokoak, eundaka dauzkagu; baña orrek aña euskera ZABALDUKO duanik ez det uste danik. Eta nere asmoa ori da beti: ZABALDU... G. Mujika (marratua)».

Euskal-yakintsu arek idatzi zuen bezela, utsi dot dana bai berbetan, baita ortografian be. Bakarrik bi «l» ipiñi ordez, «l» bateri gandorra ipintzen eutson arek, «r» bateri legez. Nik, be, «r» gandorduna erabilli dot; baiña «l» gangorduna ez dauka nere makiñatxoak. Orregaitik ez dot erabilli. (Guk bere ez «r» kakodunik irarkolan.A.).

G. Muxika'k erderaz ta Euzkeraz, bietara idaztenten eban. Aldi areitako gazteak zelan irensten geduzan aren erdal-lanak, «Jose M.ª Oyarbide» izenordez «Euzkadi» egunerokoan agertzen ebazanak...

Eta bardin euskerazkoak bere, dala «Argia»n dala «Euskal-Esnalea»n, azaltzen ebanazak...

Alan bere, zoritxarrez edo zorionez, erderaz baño euskeraz baiño geiago idazten eban. Orain an Linazasoro yaunak be, erderaz, Euskeraz baño geiago egin dau. Ni bat besterik ezpanaz bai poztuko nintzake, Euskeraz erderaz baiño geiago egingo baleu.

Linazasoro yaun argiaren liburuak, lenengo izenetik asita azken lerroraiño, «umorea», eusko umorea darabil ta dixur alde orotatik. «H gabeko umoria», liburuaren izena bera asmakizun polita da parre eragiten dauena.

«Kapitulua» ipiñi ordez, «sagardotegia» idatzi dau; ta au, be, ondo asmatua dago. Ta liburuak zazpi sagardotegi daukaz. Oraingo batzuek erabilli daben «kapitulua» berbatxo arek, naska emeki daust neuri.

Sagardotegitan ta tabernetan txikitoak edaten doazenei, nork edo nork liburuko ateraldi pot gazdutenak irakurtzen badautseez, agian liburu ugari salduko da.

Ta ori bear dogu, G. Muxika'k idatzi eban legez ZABALDU, ZABALDU beti Euskera.

Liburua irakurriz niarduela, sarritan gogai au etorri yatan burura: gutun (liburutxo) bat, liburu ta merkea, geienez 25 laurlekokoa edo merkeago erreza ta izkirimiri politez ta gertaera pare eragillez ornitua, baiña laburra, Donostia'n tren sartzean irakurtzen asi ta Tolosa'ra irixterakoa irakurri daitekena, olango gutuna ondo etorri litzakela, uste dot. Ta olango liburutxoak, «Xelebrekeriak» eroan legike izena.

Bizkai'ko errietan, olango ateraldi parregarri adierazteko, «Xelebrekeriak» esan oi dabe. Muxikaren Pernando'nak, ateraldi bakoitzean, bere zenbaki daroa, eta etxat txarto iruditzen olan zenbaki yoatea.

Eta azkenez, aztuta ipiñi barik igaro yat burutazio bat: Linazasoro yaunak, «bizkaiera», badakiala ta badarabillela bere liburan. Gipuzko bat olan bizkaieraz egiten ta idazten ikusten dunean, poz-pozten naz. Euskeraren batasunerako bide edegiten dabillela, iruditzen bai-yat.

Eta ordua da aspalditik, batasunerako bide edegiten dabillela, iruditzen bai-yat.

Eta ordua da aspalditik, batasunerako bide asteo...!!

YURRE'TAR YULEN A.

EUSKAL-ERRITIK

MUNDURA BEGIRA

Polonian ikusten danez gauzak ez doaz ondo ekonomi aldetik. Beste sorkaldeko laterri batzuetan lez inflaziñoan sartu dira...

* * *

Leningrado'ko epaikundean Mark Dymshitz eta Edward Kuznetsov judutarrai «eriotz-zigorra» eskatu eutsen naiz gero parkatu ta ordezko zigorra jarri. Ikusten danez «gogorkerizko» gobernuak danak dira bardiñak, naiz gorriz naiz zuriz jantziak izan.

* * *

Golda Meir eta munduko judutar guztiak gogor jarri dira Errusiaren aurka ori dala ta. Erri txikia baiña adoreduna Israel. Batzuk diñoenez judutarrak aberatsak ei dira... gu, euskaldunogaitik bere ori esaten da baiña...

* * *

Juan Miró margolaria, Montserratera sartu zan beste katalandar intelektual batzukin batera. Gero ez zekiala zertarako izan zan eta ez egoala konforme argitaratu eben izparringiak. Beste aldera, geroago, Prantzi'ko aldizkarietan baietza agertu zan... Guk ez dakigu, bai ala ez?

* * *

«En equipo» deritxon telebisiño saioan euskaldun bat agertu da oraintzu. Antonio Erauzkin gizon gazteak errez bete dau bere egin bearra: 50.000 piñu-landara eraitea Soria'ko Sarnago errian.

Jator erantzun eban azkenengo egunean. Telebisioko batek itandu eutson «zelan jakingo dogu zeuk 500 landara sartu dozuzan ala ez? «Palabra de vasco» erantzun eban eta kito.

Ay, ori egia beti balitz!

* * *

1970n. urteko Eleiz-giroa:Aurten ez da izan Eleiz-barruan «Humanae Vitae» gaz izan zan lako gorabera gogorrik. Holanda'ko goraberea ederto ta zentzunez bideratu da. Eleizeak, gizarte-gaietan, ezkerrerantza jokerea agertu dau. Orregaitik lurralde batzutan Eleizea mingarri izaten asi da, esaterako Ego-Ameriketan. Ez bakarrik abadeak, baita gotzaiñak eurak be, mingarri jakoez eta izpar-ingietan eta agirietan aurka egiten jake.

Vatikano'ko Batzarretik bost urte igaro ondoren, Batzar onen indarra argiago ikusten da. Batzuk Vatikano'ko irugarren Batzarra eskatzen dabe, baiña oindiño lengoak be naikoa zeregin emoten dausku.

Gotzaiñak gai sakonak erabilli dabez: Euskalerriana, Sindikato-legearen aurrez, ezketa-legearen aurrez, Granada'ko jazoerak, Asturias...

Madrid'en, Barcelona'n, Bilbo'n, Leon'en, Salamanca'n... eleizak artu ditue. Ainbat eleiz-aldizkariri ikutu dautse: Deustu'ko teologi-astearen barriai, *Fomento Social* irutan zigortu dabe, *Vida Nueva* be irutan, Barcelona'ko abadeen aldizkaria...

Konkordato arazoa be aurten ez da geldi egon. Eleiz-aldizkariak konkordatorik ez egiteko eskatzen dabe. Eleizea geldi gura daben taldeak agiriago ibilli dira. Abadeak eta erri-gizonak eleiz-arazoetan ugariago alkartzen dira.

Jesus'en Lagundia zati bi ez egitea erabagi da. Zati bat aurreralariena eta bestea lengozaleena izango ei zan.

Gotzaiñen batzar nagusiak barriztatuez doaz. (Laburpena VIDA NUEVA'tik).

* * *

Igaz txartoen jantzi diran amar andren izendegia agertu da Los Angeles'en. Lenengo izena Sofia Loren, eta Angie Dickenson, Jane Fonda, Faye Dunaway eta Shelley Winters onen ondoren. Au Mr. Blackwell jostunaren eritziz.

* * *

Sortaldeko Alemania'n bost andretarik bat eskongabea, edo banatua, edo alarguna ei da. Ori ogei urtetik irurogeira bitartekoetan.

* * *

Albert NDONGMO, Camerun'go gotzaiñari, lenengo betiko espetxerako epaipena emon dautse, gero eriotzarakoa. Agintarien aurka egin ei dau. Epai-aldi beratan beste iru gizon eriotzarako zigortu dabez. «Gizonaren bizia, gogorkeriz ezeztua izateko, bailo aundiegikoa da», diñotse Vaticano'tik. Gauza bi agertzen dira garbi, ainbat gauza illunen artean: Epaituak katolikoak dira, ta maomarrak epailariak. Ego aldeko Bamileke endakoak areik; ara beste Biafra barri bat!

* * *

Frazier eta Cassius Clay'ren arteko burrukea laster izango ei da. Bada ez badan, 150 milloitik gora pezetetan arotu edo aseguratu ditue biok. Egikizun labur baterako orrenbesteko dirutza. Bai, gaurko giroan gizaldia zoratu dala esan bear. Ta kirola? Ori antziñakeriren bat izango da, ondatu dauskue alde guztietatik. Galdetu bestela Tennis eta Sky orrein arduradunei.

* * *

Sorek ibayaren iturburuan, Jerusalen'etik iparraldera, urrean, giza-azurtegi zar bat aztertzean, Yejotxanan izenagaz txartel bat daukan gizaseme baten azurrak aurkitu dira, bereziak ala ta be, orkatilla baten sartuta arra ta erdiko ultze luze bat dauka. Ta danok jakin arren lenagotik, onek baieztu dau erromatarren oiturea: etsaiak gurutzeratzea ultzatuaz. Orretan dabizan judar jakitunak diñoskuenez, senideak obiratzerakoan kentzen ei-eutsezan, onena baiña, okertuta egolako-edo, bertan laga eutsen.

* * *

Txikiegiak aundi ta aundiegiak txiki izatera etorriko dira. Lee ta Li jakitun bik, azgarri dogun ormonea eskuz egin al-izan dabe, ta ez de izan erreza eun eta larogetazortzi amine-acidodunok alkarregaz kate baten lotzea. Egin da baiña, ta emetik aurrera jayoko diranak nai daben neurrian aundituko dira.

* * *

Upsal'en 1968'n, eta Canterbury'n 1969'n Eleizen Alkartze ekumenikoaren Batzordea batu zan. Orrein ondoren, aurten, Addis-Abeba'n batuta dago barriz. Bertara, bereziz deituta, katolikoen izenean Hamer aita joan da, ta beste lagun bi entzule lez.

Batasunerako bideak jorratzen, beste gauza askoren artean, aurtengo onetan Berbizkunde Igandea eleiz guztiok al-dala egun berean ospatutea erabagi nai leukee. Ba-dakizu, katolikoen artean daroagun oiturea 325'n Nizea'ko Batzarrean on-artua zan. Orain, batzorde onen asmoa ontzat artzen ba'dogu, Jorrailaren 12'tik 18'ra tarteko igandean ospatuko da beti.

* * *

Kezka izugarria Prantzi'ko agintari, irakasle, izkuntzale, ta idazlarien artean: Prantziko gazteak, ikasketetan aurrera doazanak atan be, ez ei-dakie ez ortografi ezta izkuntza naikorik. Ortografia aldetik ez ei-da zailla dalako bakarrik, baita irakurten ez dalako be. Prantzez geienak dakite irakurten; bitik batek ez ei-dau ezer askorik irakurten. Gaur, gizon egiten diran askok, ministroren batek be, prantzez makala ta ortografi ta joskera txarrekoa ei-darabille. Irakurri ordez, gaur, entzun egiten ei-da, irrati, zine, teleikuskin..., ta begitik sartzen ez danik ezin asmatu zelan idatzi. Irakurri daigun ba, geuk be gurea, sarriago.

* * *

Zaratamo gaur lurbira osoan ezagun izatera eldu jaku. Zerk eragin ete-dautzan eta, poliestirenozko orri-atal batzuk izan dira zeregin ori bete dabenak. Europa'ko laterrietara ez eze, baita Japon'eraiño be bialdu dituez. Azkenengo aldi onetan Errusi'ko bidean joan da pillo eder bat, eta aurrerantzean geiago bialtzekotan. Zertarako diran orriatalok? Beste gai asko osotzekoen artean, etxeetan izaten diran eskatzetako izotz-gilleen barrua egiteko, ta Zaratamo'n egiten dan aiñakorik ez ei-da beste iñun egin al-izan.

* * *

Gure ortzearen alderik zaburtsuenean, urte batzuk dirala, italiar Paolo Maffei izarlariak, argazki batzuk egin ebazan. An agertzen ziran baltzune bi, ez eutsen baiña jaramon aundirik egin. Orain, ikasle batek eraginda, Kaliporni'ko jakitunak aztertu al izan dabez, ta galasia barri bi dirala ikusi. Orrelakoak sarri entzuten dirala esango daustazu, oneik baiña, ba-dauke euren zerbait; Batetik guregandik urrenetarikoak dirala; bestetik, bata galasi arrunta ba'da be, bestea bene-benetan itxura ta izakera nabarmenduna. Zer ikasirik izango ei-dogu. Maffei I eta II orreitatik be.

BEGI-BI

KRISTAU-IKASBIDE TXIROA

Espaiña'ko Gotzaiñen 13n. Batzar Nagusian auxe esan eben Gotzaiñak: Ebanjelio-ikaskizunetan, tamal eta zoritxarrez, guztiz atzeraturik gagozala. Orain arte gure Euskalerria fededun aundia izan da, danak dakienez, baiña orain gure artean be fede-siñesmena, ikaragarriz, galtzen asi jaku, eta irakatsi ta ikasteko Ebanjelio ta kristiñau-ikaskizunak txirotasun negargarria agertzen dabe. Beste lurraldeetako laterririk geienetan be ori jazoten dala esateak, atxaki lez, ez dau balio. Bardintze edo konparaziorik egin barik, orretan errudunak gareala ezagutu ta esan daigun.

Fede ta siniskai-ikaskizunetan txirotasuna dakargunetik iru mende dira. Txirotasun ori gotzain eta abade-artzaiñak, jakitun eta giza-taldeak dakarre. Gure teolojia gure predikazio ta gotzaiñidazkietako irakatsiak, apurka-apurka txirotuten doazen ezkero, ori ulertu leiken gauzea da. Gure zoritxarra goienetan, ikastetxe nagusi, irakastegi, gotzain eta abadeetanik asi jakun. Orain, ogeigarren gizaldiko burubide ta pentsaera sakonetan, iskillu barik alkar ikusten dogu. Une au erruak argitaratuteko ta errudunak bereizteko ez da egokia. Danok errundun garala esan leike eta ori sendiak garan erriak lagunarte lez agertu diralako. España'n alde bitako jakintzak, orain gizaldi bat eta erditik gaur arte, alkarren aurka ta burrukan dabiltzala gogoratu bear dogu: laiko edo errigizon ez-jaupariena, Jesukristo ta onen Eleizea bakoa, bata; kristau-gillea ta asaben ekanduai, batez be España'tar asabai, sendoro alkartua bestea. Biak iñoz be ez dabe alkartzerik gura izan. Eztabaida, burruka, orrek gure egunetara arte iraun dau eta gaur be jarraitzen dau, baiña orain beste era bat eta gai barriak ikustn doguz. Kristau zintzo ta jakitunagoak geideaganako ulermen aundiagoa daukee, baiña euretarik askok, oraingo jakintza ta ikasiz betetuta, Jainkogabeak urten dabe. Gizatalde onei, euren gaurko jakituri eta erlejiñoaren artean ukamen eta urkaldirik ez dagola, bear dan lez irakatsi bear jake, baita, gizonen askatasunak eta nagusitasunak Jaungoikoa iñoz ezin leikela ez aiztu ez aldendu.

Eta zelan erriko giza-taldeai, langilleai, salostariai eta jakintza gitxikoai irakatsi?

Oneintzat kerigma, *erlijio goi-argitalduaren predikazio ta irakastea bakuna, tolesgabea izango da. Euren kristau-iturburua aiztuta daukee. Iñoragabetasun edo amorruz Eleiza Amagandik urrindu dira eta mundu ta gizonaren gauzai buruz, marxisten gogaia dabe atsegin. Eleizeak, ama-biotzez negar egiñik, maite dauan erri-gizon ori uriko lantegi ta fabriketara eldu zan eta ango inguru-eguratsak, Jainko-bizierabako giro txarrak kalte aundia egin eutsan. Ebenjelio ta erlejio-gauzetan gitxijakiña zanez, Jainko-gabe egin da. Gizon oneri kristau-bidea irakasteko ezdabaida ta alkar-izketa asko ez da bear. Geure bizieraz, zuzentasun ta maitetasun zintzoz bakar-bakarrik, Ebenjelio ta Kristo ta Eleizeagana ekarri geinke.*

Gaztedia be dedarka dago. Zer egin gazteai buruz? Ebenjelioa ta erlijioa, Gramatika, Filosofia ta beste munduko irakas-gaiak lez, ezin daiketsegu irakatsi. Ebanjelio ta uzkurtz edo erlijio arazoak biotzez eta Jaungoikoarengandiko gogoz artu bear dituela esango dautsegu.

Jainko-Itz betikoak, mundu onetako gauzeatara bakarrik egokitzen danean, indarra geldu egiten dau. Au gogoratu bear dogu danok.

LETONA

DANOK

Pozik dabiltz Arrasate'n, «Kanta Berri» izeneko abesti sariketarako 50 abesti jaso dabez. Euskal bazter guztietatik etorri jakoez, ta zein zelakoa dan ikusten naiko lan darabille. Ariñeketa baten 16 onenak aukeratu bear dabez, gero, Otsailla'ren atzenerako orkestaratze lanak bete al-izateko.

Lenago esanda dagon lez, Orrillean eta Bagillean izango dira Donosti, Gazteiz, Iruiña ta Bilbo'n 16 onein eskeitza eta lenengo zozketak, ta azkenez, 6 onenak Arrasate'n bertan izango dabe atzenengo leiaketa eta txapelduna aukeratzea.


Bitartean, danok zain, ia zelako abestiak sortu dauskuezan begira, ta itxaropenez urduri, ba-dau ba gure erriak orretan polito jokatzeko sena.

ASTI

ITZ-EUNDUAK

(IV)

Etxebarria'tar Juan Angel



AGERBIDEA

(a.a. = atzez-aurrera)

ZEARRETARA.—A: Lantegia.—B: Kanpai-otsa.—D: Oiñazez.—E: Izatea dau. Aditzondo bat.—G: Urrun. Jo egin.—I: Babaazala. Alboko bizitza.—J: Bearra (a.a.). Almendun.—K: Zomorro (a.a.). Bizkai'ko erria (a.a.).—L: Arraintzarako lekuak.—M: Entzumen gabekoa.—N: Guzti.

GOITIK BERA.—1: Eskua izatea.—2: Konorte.—3: Ekarten dau.—4: Altzoak.—5: Tutu. Bokal. Arpegi-atala.—6: Aiña. Atsekabe.—7: Ema-izena. Bokal. Aldi.—8: Zoiak. 9: Euri izoztua (a.a.).—10: Ikara larria.—11: Gizon izena.

III'ren agerpenak:

Zearretara = Iko.—Be; Atal.—Edadura.—Ta; I; E; Enda.—Lar; Narda.—Bultzia.—Ia; S; Ok.—Lur.—*Goitik bera* = T.—Al.—Be; Abi Aur(r)ide (a.a.).—I; A; L; L.—Kadentsu. Otu; Az; R.—Arerio.—Landak.—Da.—A.

ASMAKETEA

(II)

Otaola'tar Itziar



Nor da zure Irakaslea?

I'ren agerpena: «Zure bizarra».

NEGUA

Zugazti-basoak itun
orlegiz apaindu barik,
alderdi guztiak illun
neguko gogorragaitik.

Udako edertasuna
ez luzaroko izan eban;
orain, izotz ta edurra,
euri-malko negarretan.

Isilla, bakartasuna,
zugatz-orriak aldegin,
noizbaiten aize gogorra
zaratotsez adarrekin.

O!, biotza zapaltzen dau
egun illun, laiñotsuak!
Ordu luzez, negar mingots...
Nairik ez nire buruak.

ELEZKANO'TAR IMANOL

ERRIETAKO BERRIAK

Getaria

Bokartak dirala-ta...

Esan dezagun zerbait gure arrantzalien berrietzaz. Urteroroko albisteak ditugu arazo auetan. Gaur eguneko arrantzaleen bizi-bidea, alde batera utzirik arrastekoak, bokarta ta atun arraintza da.

Aspaldietako urtetan, etzan oraingo gertakizunik, ontzi gutxiago zegolako. Gaur egunean, ontzi geigegi sortu dalakoan naiz ni. Gure gazte denporan, ontzi aundiak egiteko dirurik etzegon. Orduko banko edo kaja aorruak etzuten erreztasunik ematen arrantzaleei. Gaur, etxeak erostéko bezela, ontziak egiteko ematen dute dirua, euneko onenbestean. Erreztasun origatik, bazter guztietako arrantzaleak egin dituzte ontziak, ta orra orain Kantauri itxas zabalean tokirik ez arrantzan egiteko. Bata besteakin or ebiltzen dira, gauez elkar ia joka ta arrisku aundian ondora joateko.

Kontu egin dezagun milla ontzi daudela Kantauriko portu guzietan. Ontzi oiek bokarta arkituko baluteke itxas zabal guzian... gaitzerdi izango litzake. Baiña, bokarta ur aundietan oso ondotik ebili oi da, gero, zenbat eta ur gutxiago arkitzen duanean, gora dator ta ur ertzean azaldu. Azaltze ori, dakigunez prantziko uretan izaten oi da.

Gorago diotan bezela, antziñan ontzi gutxi ebillelako, etzegon kezkarik arraia arrapatzeko. Prantzez arrantzaleak etzun jaramonik egiten, arraiak guzientzat zeudelako. Gaur, zer? Argi ta garbi ikusten da, zer gertatzen dan. Ez du ontzat artzen alboko bizi lagunak bere etxean nai duana egitea.

Donibane'ko arrantzaleak keja oiek aintzat artzen dituzte ta, beren naiak dira, alegia, beren uretan berak dirala arraiak arrapatu bear dituztenak eta ez besteak.

Ontzi geitze orrek, nola ta zelan sortu dira? Erantzun errexa da noski. Gobernuak eta kaja aorruak erreztasunak eman dituztelako, ta ontziak geiegi egin diralako ondoren. Danentzat ordea, ez egon arrairik. Kontu egin dezagun, zenbat eta arrai geiago arrapatu, ontzi geiegi oiek, orduan eta arrai gutxiago agertzen da.

Askotan larregikeri geiegi ere ikusten da. Bokartak txikiak diranean, angulen antzekoak... ala ere arrapatu oi dituzte! Ori da kalterik aundiena! Txikia dan bitartean bokarta, ez da errespetorik nabaitzen arrantzaleen artean. Orrek dakar gero ondamena.

Naiz ta erabakiak artu urtero: nola onenbeste kilo arrapatu ta geiago ez, bere balioa, presioa jetxi éz dedin, ala ere, sare barruan arrapatzen dituzten guziak, beraz ezin izan arren portura ekarri kilo geiago, beste ontzieri ematen dizkie. Orrek esan nai du, ta garbi dago, arrapatzen duten guzia sare barruan, portura ekartzen dutela, orrela agerturik alperrikako neurriak artzen dirala.

Igazko urtean, gertatu zan gertakizuna, alegia, bokarta berandu azaldu ta bera prantziko uretan, gero eziñean, arrapatu ezin, beste uretan dagolako. Bokartak, urtero dakigunez, prantziko urak, basterrak jo oi ditu. Bertan iraunaz aste bat edo beste. Gero berriro abiatzen da, edo kanporuntz, edo basterrik baster, ur auetatik galiziko urak arte. Igaz ordea, etzuan olakorik egin eta orrek eman zioten makiñabat buru auste gure arrantzaleeri. (Itxuraz, gure ur-txikietan ez omendute jánaririk aurkitzen, «baratz» ori azken urte otan zearo «garbitu omen degu». A.).

Negu gorrian itxoin ainbeste illebetetan bokarta agertu arte, ta orra gero ze komeri, arrapatu eziña besteren uretan.

Dakigunez ere, mundu guziko uren neurriak, arrantzarako beintzat, SEI millatik kanpora dirala. Emen, gure itxastarren artean beste alkar konponketak zituzten, alegia, IRU millaz.

Konponketa ori ordea, aurtengo urte azkenarte dute, ta idazki au agertu orduko aintzat artua, baldin beste konponketaren berriak irakurtzen ez baditugu. Ortan dabiltz agintariak Paris aldian. Lortuko ote dute zerbait? Ez dakit, baiña nere usteak oso pesimistak dira.

Bi kostera dauzkate arrantzaleak, bokartak ta atunak. Kontu egizu irakurle, baldin bokartarik arrapatu eziña badute, gero atunak kale *egiten badu... ze nolako itumenak ainbeste milla familik!*

Ze poztasun izango dute arrantzaleak ontzi berriak egiteko? Batere ez. Orain urte asko ez dirala, olako ontzi batek lau edo bost milloi peseta balio bazitun, gaur egunean amabi edo amalau milloi kostatzen da. Nola orduan ontzi berria egiteko gogoa izan?

Egondu naiz bein baiño geiagotan arrantzale askorekin, ta beren erantzunak dira: «Daukagun ontzia zartu arte ebiliko gera, ta ondoren, txistua jo, ta kayota...».

Gure arrantzaleak naiko kezkarik izan dute ekaitz artean arrantzan ebiltzeko, orain beste ekaitz au daukate!!! Arrantzalen etorkizuna, benetan errukigarri!!!

OZKIN

Bermeo

Arrantzaleak etxean gara, Gabon aurreko egunetan eldu giñan etxera, urtero egiten dogun sasoia amaituta, Canarias aldetik.

Esan bearra dot: ez dala danontzako arraintza ona izan, joan dan urtean baiño txarragoa izan da-ta. Errua, geroago ta burdiñezko ostigidun txalupa geiago egitetik dator. Baiña itxasoa danona dan lez, ez dago zer esanik. Gutiz aurrerakuntza zaleak gara-ta.

Aitatu bear dot, andik giñala artu gendun barri txarra, Burgos'en gertatzen ziran gauzagaz; esan bekit, euskal-arrantzaleak, ez giñala aspaldi orrela egon, urdurituta, Euzkalerri'ko jazoeragaitik, egun orretan ikusi giñan lez. Ta ez da or amaitzen, au idazten dodan egunean, Urtarrillaren 11'an ,erri guztiko edan-tokiak itxita daukaguz dakizuenez.

Itxas-gizonen kemena ez da makaltzen atanbe. Igaro dan Illeren 20'gn. Bermeo'tik urten gendun 70 bat lagunek, geienak arrantzaleak, Urduliz'erantz, an, meza bat ataratzeko asmoan erri orretako seme zintzo bateri, ez gintzan emen izan aren eriotzaren orduan-eta. 30 Km. oiñaz eginda gero, ara zer gertatu jakun, ango abade jaunak ez euskun meza emoten itxi gure lagun aren omenez, eta zurtuta geratu giñan, guztiok, abade orren erantzunagaz.

Ziur nago, Aita Gotzon'ek, zerutik parkatuko dautsola.

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Arrazola

Gizonaren pausoak iñoiz be eztira utsak. Gizona dabillenean zeozertxogaitik. dabil. Nora jo eztakianean be, ibilli dabil; nora jo billa dabil.

Egiaren argitasuna edonun dago, baiña, ikusi gura dabenak, egizko begiekaz begiratu bear! Eta gizona, gizon ba-da, ezin lotu betirako argiaren kerizpetan. Argirantz begira egongo da beti. Argiaren kerizpea ezin dogu artu elburutzat, argira eltzeko bidetzat baiño.

Sarritan aurkitzen gara, baita gazteok be, nora jo eztakigula; au da, argi billa, kerizpetatik urten guran. Geure indarrakaz ezin dogunean, laguntasuna bear. Batzuk Jaungoikoaren esker onean eta alkar-maitasunean dogu itxaropena. Beste batzuk gizonen jakituri ta aurrerapenetan dabe uste osoa.

Baña, dana dala, guztiok aurrera egitea gura dogu, ta geroago ta gizarte egokiago baten bizi izatea.

Auxe da, izan be, gazte izatearen edo gaztetasunaren ezaugarria. Onela, geroari begira, gure alegin guztiak arlo onetatik egin bear doguz; baiña zuzentasunak dakarren bakea ta egiaren argitasuna oñarritzat artuta. Bestela, guzurra ta indarkeria jabetuko dira gure etorkizunagaz. Negargarria!

Gaztetasuna aitatu dodan ezkero, badago nire errítxoan be, gazte talde berezi bat. Bai sasoiz ta bai izatez.

Poztasuna ta gaztetasuna dariola agertzen dira nun-nai. Negu otzaren latztasuna ta gordintasuna berotzeko ta leuntzeko naiko dira. Euskalerriko udabarriaren itxaropen-distiratxo bat dirala esango neuke!

Jarri be, Euskalerrian, negu gogorra jarri yaku. Bear izango da, bai, eguzkiaren edo onelango gazte-taldeen berotasuna, Anboto'ko surdai arroa biguntzeko ta udabarriari irripar zabalez begiratzeko.

Arrazola erritxo onetan be, geroa negarrez iruditzen yaku, erri txikia izan arren; baiña alan da guzti be, ez gara atzeratu. Aurrera egiteko ustea daukagu.

Jo ta ke ekin bear dautsagu; ez gagiezala neguko otzak kikildu ta bildurtu. Geroa geurea da; itxaropen apur bat ezarri daitsagun gure gogo gaixoari, ta agertuko da noiz baiten udabarriko eguzki argitsua!

EGUZKI

Markiña I

URREGARAI.—Artibai Taldeak ataraten daben iruillabeteroko «URREGARAI» izeneko orrian ikusten dogu, mendigoizale talde au sortu zanetik 25 *urte dirala. Ia ba zidarrezko eztaiak ondo ospatzen ditugun.*

GAZTE ALAIAK'EN BRISKA TXAPELKETA.—Gazte talde onek antolatutako briska txapelketa au Abenduan 25*'ean amaitu zan. Irabazleak M.ª Jesus Barrutia ta Xabier Maguregi; bigarren Garbiñe Arrate ta Iñaki Maguregi. Zorionak!*

ZERUTXU'KOEN BATZARRA.—Il onen 17*'an izan dabe euron Batzar Nagusia. Datorrenean esango dogu zeintzuk izan diran zuzendaritzat aukeratutako barriak. Danon artean, ikastolea, ia aurrera eroaten dogun.*

ITZALDIAK.—Il onen 19 *ta* 20*'an itzaldi bi izan dira, bata Busca Isusi'k zuzenduta «Perretxikoak» gaiagaz eta bestea Iñaki Linzasoro'k zuzenduta, «Euskal-Erria auxen da».* 28*'an Vicente Latiegi'k emongo dau beste bat «Populorum Progressio».*

ROSARIO IBARLUZEA.—Gure artean egun batzuk igaro ondoren barriz be joan da, lekaime au, Peru aldera. Len be ortik zear 35 *urte eginda egoan ta bere aitan gaixoa gaitik etorri zan. Dakigunez aita asko sendotu da ta gu be joan bearra euki daben lekaimetxu onegaz asko pozten gara.*

ERREGEN EGUNEKO JAIA.—Barriz be gure tartera ekarteko, len joaten itzi bear ez jakuen ospitaleko zarrak, eurontzat ospitala barriztatzeko diru pixka bat etarateko jai alditxo bat izan zan. Soka-tira, abesti, dantza etabar.

Danori, URTE BARRI ON!

ANJEL


Markiña II

«AGUR», gaur Markiña'tik natorkizu. «ZERUTXU» dantza-taldeari buruz, gauzatxu batzuk esan nai dautzudaz. Gero, zuk, irarritako letra dotore orretan zeure burua ondo orniduta agertzen dozunean, ez aaztu Markiña'ko dantzari txikien eta euren irakaslearen lan ederra agertzea.

Danak alkarturik aztertu ditue nire itaunak eta danen artean erantzun be. Ona emen izan dogun alkar-izketa:

—Markiña'n, beti izan dira dantzari-taldeak?

—Beti izan diran ala ez... ezin geinke esan, baiña gure asabengandik datorkigun dantzari-kate au luzea dala, bai. 1.610'garrenekoa da Markiña'ko dantzari-talde batetzaz daukagun leenengo agiria. Auxe da, guk ezagutzen dogun leenengo barria. Leenengo argazkia ostera, 1.895'garrenekoa, Xemein'go dantza edo Arretxinaga'ko Mikel Deunaren dantzea dakarrena. Oso ondo gertauta dagoan dantzari talde bat emoten dau argazkian begiratuta. Ez jake ezertxo be falta; xeetasun guztiekin orniduta dago.



Geroago be izan doguz dantzariak Markiña'n. Guda ostean, Olaeta'k ekin eutsan lan oni eta talde bi izan zituan bere ardurapean: bat nagusiena ta bestea txikiena.

—Markiña'n «ZERUTXU» ikastola jaioaz batera jaio zan «ZERUTXU» dantzari taldea be?

—«ZERUTXU», dakigunez, ez da ikastolea bakarrik. Ikastolea bere ardatza ta muiña izan arren, kultura-alkarte bat da «ZERUTXU» eta leenengo-leenengotik bere asmoetan sartzen zan «folklorearen» arloa be; olantxe sortu zan dantza-taldea.

—Zuen iritziz, zeintzuk dira, ikastola batentzat, dantzari-taldea izatearen alderdi onak?

—Itaun oni, maisuak berak (Felipe'k) erantzun dautso, onelaxe:

—Nik neuk uste dot, dantza-talde bat izateak, ikastolari begira, alde on asko daukozala. Esate baterako: «disziplina» esaten jakon ori indartu, *zer* dantzatzen dan eta *nun* dantzatzen dan jakitea; eta batez be *bertoko dantza jatorra* dantzatzeak umearen eziketarako, batez be euskaldun lez azi ta ezitzeko balio aundiak daukaz. Orrela ikastolan parte artzen dogu ta bertan umeak artzen daben eziketa ta jakintza osotu ta aberastu.

—Umeen euskal-gogoa biztuteko ona da dantzea?

—Bai orixe! (diñost Felipe'k); oso ona batez be gure nortasunaren agerpen bat le artzen ba'dogu.

Zuk ba-dakizu zelako garrantzia emoten jakon gaur-egunean soin eziketa edo erderaz «educación física» esaten jakonari. Euskaldantzea egokia da umeen gorputza ondo azteko?

—Bai; orretan ziur-ziur egon. Euskaldantzeak asko eskatzen dautso gorputzari egiten diran igikune guztiak bere onerako dira.

—Zenbat dantza-mueta dakizuez gaur?

—Ogei bat bai gutxienez.

—Guzti orreetatik, zeintzuk dira zeuk atsegiñen jatzuezan dantzak eta zeintzuk ikusleai atsegiñen jakezanak?

—Guretzako danak dira ederrak eta gerrantzitsuak; ikusleai ostera, gutxi-gora-beran onexek jakoz atsegiñen: Xemein'go dantza (Arretxinaga'ko Mikel Deunarena), mutillen uztai-dantza, launako ta korputz-dantza. Bai Leiza'ko ingurutxua ta esku-dantza be.

—Astero zenbat ekitaldi egiten dozue gertatzen?

—Neska ta mutil, danen artean, amaika ekitaldi inguru astean, baiña ekitaldi bakoitz ordubete baiño geiago izaten dan lez, 14 bat ordu sartzen doguz astean.

—Asi ziñienetik, nondik-nora ibilli zan edo nora egin dozuez zeuen urteerak?

—Iru urte daroaguz erriz-erri geure dantza-jardunetan eta Gazteiz'tik Eibar'tik, Zarauz'tik, Mondragoi'tik, Durango'tik, Gernika'tik, Zaldibar'tik, Lekeitio'tik, Bernagoitik eta abar ibilli gara. Guztiz, 21 urteera aurten.

Udan Bizkai'ko, Gipuzkoa'ko ta Araba'ko errietan egin diran umeen jai edo dantzaldietan, zelan artuak izan zaree? Ondo amaituta egon dira jai orreek? Diru aldetik zelan erantzun dautzue?

—Joan garen erri guztietan arrera oso on egin dauskue beti. Pozpozik gagoz alde ortatik. Toki batzutan, jakiña, beti urteten dau gauzak beste batzutan baiño birillago, gutxiobea, alaiagoa... baiña lan ederra egin dogu danon artean eta itxaropenez begiratzen dautsagu etorkizunari. Gure errietan, umeen bat edo dantzari jai bat antolatzen danean buru-auste bardin-xamarrak izaten dira en guztietan. Diru-arazoak dakar buru-auste ori. Betiko arazoa! Bear-bada, talde jator-jatorra baiña gutxiago ekarrita, arazo ori apur bat arindu daitekela uste dogu. Gaiñera, talde jator-jatorrak eroanda, gauzak obeto eratu urtengo leukie eta folklorea, geure-geure diran dantza orrekin aberastuaz joango litzake.

—Umeak eurak pozik dabiltz? eta gurasoak?...

—Umeak eurak oso pozik. Astero edozein bat ekiñaldi izaten ditugu ikasten eta plazara urteteko gertatzen eta umeak utsik barik datoz. Onegaz dana esanda dago. Eta gurasoak? Gurasoak, dantza-taldearen ardura aundia agertzen dabe; taldea ondo joan daiten eta abar. Oso gogotsu ta pozik dabiltz. Asko laguntzen dauskue, batez be dantzarako behar diran jantziak-eta lortzen. Eurak josi asko egiten ditue. Zer besterik eskatu genkioke? Orrez gaiñera ikustekoa izaten da umeak etxetik dantzan egitera datozenean; ain garbi txukun eta politto!

—Ze asmo daukazue edo zer lortu nai dozue «ZERUTXU» dantza-talde polit onekin?

—Ikastolaren eta bere lan ederraren inguruko balkundea egin, batez be. Baita gure umeak barruan, gure gauzenganako ta folklorearenganako maitasuna ta zaletasuna sortzea be. Euskalerriko folklore jatorra, erri-errikoa, bait ondoen ezagutu, aztertu ta lantzea bideak zabaldu umeai...

—Gerorako asmoak?

—Bai, asmo batzuk darabilguz geure artean: Aurten, umeak eurak artu dabe taldearen ardurea. Goitik-beera barik, eurak-eurak konponduko ditue ainbat gauza, batez be jantzi, dantza-tresna, diru-arazoa eta abar. Datorren urterako gure dantza-jazkerak berriztau eta ugaritu egingo ditugu. Txistu gaiñera, beste musika-tresna batzuk be sartu nai doguz. Esate baterako, auspo-soiñua eta txirula.

—Besterik ezer?

—Bai, «AGUR» eri gure eskerrik onena emon, gure lana euskaldunai agertu dautsolako.

LUIS

Durango

UMEEN GABON ABESTIEN III'GARREN TXAPELKETA

Gabon Abestien III'garren txapelketa, «Txoritxu Alai»k antolaturik, Gabaurreko igandean egin zan. Joan da Abendu illuneko dizdiratxo bat izan zan gure txikien jai polit au: eberdian, gaiezin obean, «Astarloa» areto ederra be

ERRIETAKO BARRIAK

beterik zala. Txapelketarako abestia: Intxausti'ren «Birjiña Maite».

Amorebieta, Berriz, Ermua, Iurreta, Zaldibar'ko taldeak aurkestu ziran... Barkatu, talderen bat ipinten ez-ba-dogu!

Guztiok, ondo-ta gogotsu abestu arren, txapeldun danak ezin izan ba! Eta olan, txikien artean I'engo saria' Amorebieta'ko «Zornotza» taldeari emon jakon. Eta II'garrena, Ermua'koari. Nagusietan, edo nagusienetan, obeto esateko, I'engo saria, «San Prantzisko» koentzat eta II'gna. «Tronperri Andi» rentzat. Txukunen jantzitakoentzat be, sari berezi bat izan zan eta «Txoritxu Alai»k eroan eban. Zorionak, irabazle eta gaiñerako taldeeri!

An esan ebenez, idatzi bearrekoa da emen: moja batzuk, aurten lenengoz, txapelketan talde bat aurkestu dabela: San Prantzisko'koek eurak. «Aupa mojak»! esanda, guraiña txalo jaso ebezan. Txaloak eta sariak bere bai: txapelduń urten eta zozketako otzara gozoa eroan! Mojak izan bear, etxerako ain ederto egiteko. Aurrera ba, Prantziskar mojatxook! Eta ia, datorren urtean, beste moja ikastetxetakoak bere agertzen diran: ordua da-ta!

Amaikeran, atadian, neskatil luze, ule argi bat: bera ikusiaz batera, Eskandinabia gogoratu jakun. Baiña, euskeraz egiten ebenez, berak eta berarekin egozanak, gure artean be, ba-dirala besteak baiño geiago azten diranak pentzaurik, arin aaztu giñun. Gerotxoago baiña, beragaz, talde batean, alkarrekin izketan aurkitu giñan. Euskeraz, polito egin arren, emengoa etzala ezagun eban: «Nungoa zara?» «Suezia'koa», erantzun euskun. Sei bat illabete dala Bilbo'ra etorria, euskera tautik jakin barik. Deusto'n ikasketak egiten diarduala eta batera, ingeles irakasten dauala... Guzti au eta geiago euskera utsean esanda. Gero, berak egindako itaunak, lotsarazo ginduzan: «Emen, (Durango'n) euskera asko egiten da?». Eta egia esan bear, egi latza: ezetz!...

Suezia, Finlandia, Ipar Amerika'tik etorri bear ete jakuz onelako irakaspenak emotera?

Eta bitartean, gu emen, Euskalerriko ikastetxeetan, irakasle batzuk, euskera egiten daben ume euskalduneri, «Aldeano» deitu-ta antzekoak egiten? Onelako irakasleeri itaun bi: 1.—Baserritarra izatea, txarra izatea ete da? 2.—Nun bizi ete gara eta euskerea nungo izkuntza ete dogu? Eta orain, eskakizun bat: Gure erriari, ez barrerik egin!

Sueziarraren aurrean, emengo neskatil bateri, itaun au egin jakon: «Gure erria euskalduntzeko, zer egin bear ote da?» —«Gurasoak kontzientzitu», izan zan bere erantzupena. Bai, ederto! Baiña, orrezganera, irakasle, seme-alaba etab. bere bai! Beraz, arloa ba-dogu!

BITAIÑOPE'K

Zaldibar

Zaldibar'ko neskatilla batzuk gara, erri onetako Parrokian abestuten dogunak, izenez Gautxoritxikiak. Gabonillaren 20'an Durango'ra joan giñan abesti-konkurso batera.

Konkurso ori Astarloa'ko antzokian izan zan eta bigarren saria atara genduan. Abesti sarituen iznak onek izan ziran: Bijiña Maite ta Ator-Ator, eta abotsetara abestuak. Gizon on bat zan zuzendaria, DonSantiago izenekoa, erri onetako abadea. Mezede asko egindakoa errian, eta gugaitik be alegin asko egiten daben gizona.

GASTELURRUTIA'TAR M.ª Asun

Arratia

Urte zaarraren joanak barria dausku ekarri, eta gure AGUR, euskeraren bizigarri bizkorra, Erriaren biotzean azkar, ibiltari.

Euskalerri guztia dot biotzeko, eusko irakurlea gogoko; gaurko lantxo au baiña ormenka ta andi-andika eskubareakin batu ta bildutako barri labur oneik, Euba'ko Etxebarri'n dodan izeko Mari, AGUR'en arpidedun barriari, eskeintzen dautsadaz, bein betaurretoen ganetik eta azpitik beste bein begiraturik, eta zabal-zabal ezarririk loba ta illobai irakurri dagioen.

NEURRIA

Aldi ontan jolas, lan, kirol, gau, egun eta abarrentzat neurriak doguzan ezkero, zergaitik eztogu txurrut-neurririk? Bear-bearrezkoa dogu ba, gure Agustin'eri jazoten jakona aintzakotzat artzen badogu. Illuntzeetako txurrut gozoak neurririk barik egiteagatik, matsondoak igartuko dirala-ta bildurrak erazota bigerkoa gaurkotu guran, ok egin dausku gizon onek, eta txingar-ganean erreko ogi-kuzkurragaz epeldutako ardaua ezpada ezin edan besterik. Au zori txarra, gizonarentzat.

EIZTARIAK

Aizebelar'go sakonera (Euba'n) basurdeen bizi-leku biurtu zala-ta, auzuneko eiztaririk panparroienak joan ziran goiezean goiz, Izagirre jatetxe ospetsuan basoarentzazko ikasketa ta oarrak egin ondoren. Jarri ziran, ba, bidegurutzetan, eta txakurrak azkatu.

Txakurrak auka-mauka asi ziranean, bost basurda eder mendia gora jarri ziran, eta onein zai egoan morroskoari jazorikoa... emen dogu:

Dardarka asi zan, izkillua eskuetatik berez galdu, uste gabean prakak busti ta kornorta galdurik lurrera jausi.

Beste lagunak, geldirik egote ta itxarote luzeakin aspertu ziranean, gora ta beera, erdira ta ertzera jo ondoren eta lagun gaixoa il-itxuran aurkitu, bizkarrean eta tatarraz txandak eginik, Arkaitzerrotara jatsi eben. Eta etxe ontan paitar espiritutsuak gaixoari edanarazo ta asun-igurtziak egiten ziarduela, an agertu ziran kurrin-kurrunka aitatutako basurdak, Arkaitzerrota'ko nagusiaren «txarriak».

ONDARROA'TARRENTZAT

Emen izan dodaz sei bilbotar goizollandatxo, azken igarotako udan (Garillaren 9'grn.). Plentzi'ko ondartzan Argoitia nebarrebakin, Xabi, Luis, Juan Mari, Patxi ta enparauakin izan zan gaztediagaz arratsalde alai jostalari aztueziña izan ebenak.

Nigaz izan diran ollandak begirakadak egiñak dira egutegi barriari, ta, deika bere asiak dira uda zoroari.

Lora-txorta boskotxa osotzen dabe naiz-ta ez izan euskaldunak. Euskalerriko txokorik ezkutuenak illean bein arakatuten dituan aldizkari au ezagututen dabe, baita aukeratu bere, gorantzi ta agur sutsuak igorri edo bialdu ta ondarrutar gaztedi euskaldunakin artu-emon-lokarriak sendotzeko.

Emen dozuez ba, Ondarrutarrak, AGUR'en orrialdeak, eta bilbotar neskatillak zuen erantzunaren zai. Izenak: M.ª Karmen, Beatriz, Juli, M.Bi eta Izaskun.

GORANTZI TA ESKER

Arantzazutarren semebitxi dan Aita Peli'k, P. Rico'tik bialdu daustazan barrien artean gorantzi gizen-gizenak izan dodaz erri osoarentzat. Eta nik, eskerrik beroenak Zeanuri'ko amama Mari, J. Ozerin'en emazteari ta Ipiña'tar Puri Arantzazugoiti'koari, urtero-urtero euskaldunago agertzen diralako. Baiña batez bere Errekagorri entzutetsuaren loba Errosa Mari'ri. Jaso neban, eta emen dot, niretzat lenengoz egin eta bialdu zeustan idazki txukuna; euskalduna. Jarrai olaxe, atzera begiratu gabe.

LANDAJUELA'TAR A.

Tolosa

GABONAK.—Zorionekoa garai bakoitzean dagokiona egiten duan erria. Ogei egun aurretik jokabide bat. Eta Gabonetan: kaleetan abesten «Coral Franciscana», «Udaberri» dantza taldekoak, Eskolapioak, Catequesis'ekoak eta eundaka jaiotz eta artzaiandre talde txiki.

Eguberri Abesti Sariketan irabazitako taldeak: Konsentzio Mojak (Frantzesak) lenengo; bigarren «Eskolapioak»eta irugarren «Gain-Berri» ko monjetako taldea.

Negarrez eta parrez indartzen da euskal-gogoa.

LIBURU BERRIAK.—Euskal aldizkari batek «verazidadeko notizi» au emana du: Alegia, nere adiskide ta idazle gazte dan Larrañaga'tar Jon, en «Euskal eskulangintza» erderaz egiña dala, itzaurrea ere. Tipulak baratzan!!!

Oraintxen eman digu bigarren alea edo «tomoa». Lenengoan bezela, berezi turik euskera-euskera, eta gero erdera. Bejondeikela!

Eta ara beste liburu eder bat eskuetan. Au ere euskera-euskera eta erderaz. Barandiaran'dar Jose Migel jakintsua egillea. Liburua: «Estelas Funerarias en el País Vasco». Liburuaren balioa nolakoa izango, begiratu egilleari eta aski duzute.

BOIKOTAK.—Aurtengo Eguberritan euskal antzerkirik ez. Ordez, zineak beteak. Pelota-leku eta «sala de fiestas» ere, ta boikotzaleak tartean ugari. Etxekalte gabiltz. Bakarrik, auxe bakarrik falta zaigu egitea: euskeraz ez itzegiteko «protesta» egin. «Orrela izorratuko... eurak guri».

SERMOI BAT.—Abenduak 27. Frantziskanotan. Euskal sermoigilleak: «Jakin berria dut mendi batean eun bat mendizale bildu dirala, eta izlariak au esan: «Eskondua banintz eta erbestera andrerik gabe joan bear, banatze onetan onek gogo ba-lu besteren batekin aragitzeko, ontzat artuko nuke».

Eta beste au: «Guk nai dugun Euskalerrian, gurasoak semeek egin bezin laister, auek estaduaren eskuetan lagako, gurasoak oro eskubideak galdurik».

Baita: «Gure Ikastoletan umetxoak Jaungoikoaren itza ere ez dute entzun bear, bere eziketan».

Onetzaz sermoigilleak itzaldi eder bat marduldu zuan. Batzuek arritu. Ni, zein liburuan aundiagoak irakurtu nituala gogoratu. O! Euskalerri gaixoa!

«UXOLA»

Usansolo

Kristau Ikasbidea

Orain arte, motel egon bada be Usansolon gure izkuntz ederra, berriz sortu eder bat, une onetan ikusten dogu. Euskera zaletasuna, betikoa izan da gure auzotegian, baiña iñork ez eban ori esango, azalezko ikustaldi batean. Erderea zan jabe inguru guztietan. Osasuna, Eleiza aldetik, beti lez, agertu jakun.Zeruko Aitari asi giñan gure eskariak egiten, ta gure opariak ezkeintzen, euskerazko mezan.

Ta onela eginkeran, argi barri bat sortu zan euskaldun biotzetan. Gure otoitzak benetakoak izango ziran lenago be, baiña norbere izkuntzan ze mamintasun, ze uste osoa eskarietan, ze ur Aitagandik danon biotza. Tamalez, eztitasun oneik, aurtxoentzat ez ziran. Erderazkoa zan orrein Kristau ikasbidea.

Baiña euskerazko mezan bitartez, erriaren egarria ikusiaz, erriko gazte talde baten laguntasunagaz, gure eleizburua, nai eben umetxoari euskeraz asi jaken Kristau bidea irakasten. Arritu ta poztu giñan eun ta berrogei gazte edo geiago, euskerazko otoitzak ikasi gurean ikusiaz. Lan ederra, gazte talde onek egiten dabena, D. Bitor aurrengo dala.

Eskerrak danori. EKIN ETA JARRAI!

Kili-Kili

Ondo ezagunak izan dira aspaldian gure etxean, sendi onetako aitita osaba ta Kili-Kili'ren anaiarrebak. Baiña, (beti itz au) etxe gutzitan ezagutua gure auzunetan. Euskerea gatxa dala, beste zeregin asko dagoala ta abar, zenbat euskaldun sendik erantzun dauskue, euran izenpetzea eskatzean.

Umetxoak! Ez dozue Kili-Kili'ren anai edo arreba izan gura? Zuen aitamari eskatu. Poz pozik artuko zaitue Kili-Kili'k. Idazki oneri asieria emon dautsatenean, dana argi ikusiaz poz pozik izan naiz, baiña berari jarraituaz, illuntasunak be ikusten dodaz ta itun nago. Zelan aurtxoak irakurten ta idazten ikasiko dabe, gurasoak egiten ez ba dabe?

Ta tamalez, Usansolo'n ez da euskeraz irakurten. Itaunketa bat, igaro dan igandean egin neutsan, AGUR aldizkari saltzalleari. Zenbat AGUR saltzen dira gure etxeetan? Erantzuna, lotsagarria. Eunetik gora salduten nebazan lenengotan, baiña utzi egin bearko dot laster bera saltzen, orain arte baiño geiago ez bada saltzen.

Apalduta gelditu nintzan. Egia izango ete da au? Gure auzotegian, ez ete dago zaletasunik euskereazrentzat? Esakerak baiño ez dira, euskerazaleak garala?

Ez eta ez. Euskeraz irakurriko dogu benetako euskerazaleak garean ezkero ta bete bear bat artuko dogu.

Nere lagun urkoari, euskalduna bada AGUR erakutsiaz, erosi ta irakurri dagiala esan, Usansolo'n danak ezagutu dagien aldizkari au. Dana be, bost laurleko baiño ez da illean.

Adiskide maiteok. Bete bear onegaz zintzo jokatu. Eskerrik asko.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Ibaizabal aldetik

GALDAKANO:

Igaro doguz, Jauna'ri eskerrak, urtiak daukozan egunik gomutagarrienak, jakiña, kistarrantzat; Gabonak, Gabon-zarrak, Urte-barrin asiera ta Bakaldun Deunen eguna. Eta, beraz, sartu gara urte barri ontan, zorionez, orreetara nai genduke, igaro dana baiño baketsuagoa, zuzentzagoa ta azkatasun geiagokoa izatea bai euzkotarrontzat ta bai gizaki guztientzat.

Jai gomutagarri orreek dirala-ta, eurek agurtuteko apainkeri asko ikusi dogu etxeatan, saleroste ta txaideatan be, emen zugaitz andi apaiñak, izar ikusgarriak eta bai izki andiekin «Felicidades» urrundik ikusteko eran ipiñita. Salerostetan ba-dakigu zergaitik jarten dabezan pitxi orreek eroslearen arreta lortutearren; etxeatan oitura dalako, zugatzak eta jaiotzak ipinten dira, eta txaidean? Eurak siñestuten eztabena siñestuazoteko edo ikusiarazoteko. Apainketa orreek atsegingarriak izango litzakez benetako maitasuna ta aurrekoantzat lotsa edo itzal geiago balego, baiña, orretarako siñeskorra, benetako kistarra izan bear da, ta ez zitalkeriz eta gorrotoz dabillena.

Ia asi-barri dogun urte ontako Gabonak aurrekoak baiño atsegiñagoak izaten doguzan.

* * *

Orain artean, zorionez, ez dogu errian dantza sarraturik izan, baiña, gertu dabe bat Usansolo'ko auzounean, guztiz apaiña esan dauskuenez; errian onerako? Ez gure ustez; toki orreek erriari emoten dautsen «goralpena» baiño gaztediari egiten dautsoen kaltea askotaz andiagoa dalako, orreetariko dantza-lekurik geienetan arinkeria ta lizunkeria baiño besterik eztabelako ikasten, oitura garbi ta dantza txukunak aztuaz. Ondo egongo litzake dantza orreetara doazan gazteak AGUR onen 8'gn. zenbakian «Dantza-Lekua» idazpurutzat artuta Baraiazarra'tar L'ek idatzitako idazlan mamintsua irakurtea, berak sakon eta argi erakusten dabelako gauza jakingarri asko.

* * *

Urtarril onen 4'gn. Jaunak bere aldamenera eroan eban Barandika'tar Bingene, Orue-etxebarria'ren alargun euskeltzalea, larogei ta amaika urtedun zala, Elexalde'ko auzunean. Goyan Bego andera zintzoa, eta laguntzen dautsegu atsekabean bere seme-alaba adizkide onai.

BASAURI:

Beste gauza askotan legez dantza arazoak be aldatuaz doiaz azkenengo urteotan eta, ez onerako, gure ustez, askotan txarrerako baiño. Leenago, gure dantzalekuak erriko enperantzak eta basatxonuko inguruak izaten ziran, toki argiak eta alaiak berak! Gaur, ostera, enperantza askotan eztago dantzaketarik eta aurkitzen diranak ia aldenduaz doiaz; Basauri'n berton ikusi gentzake esandakoa.

Azken aldirarte, ostetza andiko jolas ederra egiten zan erri ontan, baiña, dantza-leku sarratu bi ipiñi ebezenetik onera geroago ta notin gitxiago aurkitzen da enperantza ortan, areto sarratu, ketsu, lizunkeritsuak gaiñezka, notiñez beterik aurkitzen diran bitartean. Ori gitxi bada, laster beste bat igiriten ei-doaz, beraz agur Basauri'ko «erromeri» apain jendetsua!

BEDIA:

Nozian bein erri txikerrak izanarrik, zerbait onik be egiten dabe orreetako erri-gizonak, sarritan andiagoak egiten dabezanak baiño egokiagoak. Orain urte batzuk, Bedia'ko Udalak pelotatoki polit bat egin eban bertako ta bertaratuten diran gazteak bertan jolastuaz trebetu daitezan. Aldi ontan barriz bear-bearreko ziran bitxabal ondoko oinbideak egiten dabiltz, bearbada Erri-Lanak alkartzearen laguntzaz.

Egia esateko eztakigu erriak bakarrik edo beste laguntzaz egiñak diran oinbide orreek, erri-agintariekin itz egiteko erarik izan ez dogulako, baiña dakiguna da, erriren batek bear baebazan oinbideak, Bediak bear ebazala, ara-ona oiñezko notintzak ibilteko bitxabal estua dagolako bertan. Aupa bediatarrak! Ia erria geroago ta apaiñago ipinten dan.

BASA-JAUN

ETXAIDE ADISKIDEARI PAKE-BIDEZ

Nik «NUN BIZI GERA» izenburuz idazlan bat ZERUKO ARGIAN eta AGURREN argitara nuan ezkero, egunak joan dira. Ta zenbait adiskidek au esaten zidaten:

—«Ikusiko dek...iri ez dik iñork erantzungo».

Eta nere artean au esaten nuan:

—Nik gutunen bat ote det, iñork ikutu ez nazaidan?»

Eta orratx! Uste gutxiena nuan aldetik, zu —Kixote bakarti ori— etorri zatzaizkit nere lana jorratzen.

Biok, izan ere, Kixote bakarti izan gera. Guk geron liburuak argitara ditugunero, geron poltsa eskasaren arrisku aundiz atera izan ditugu. Zu, gaiñera, aspaldi onetan Euskaltzaindiko billeratara agertu ere etzera egin. Orregatik, aldi ontan gure artean sortu dan giroaren berri jakiteke ari zera nereari erantzuten. Zureak ez nau berotu, gutxiago asarratu. Bai baitakit fede osoz ari zerala zurea esaten. Bakar-bakarrik, auxe ez dezu ain garbi gorde:



Zure orren azkenengo orrialdean, au diozu:

—«Bi jaun hauei zor diedan amodioagatik eta begitapenagatik (Lekuona jaunari ta neri, alegia), karta au iñun ez argitaratzea erabaki dut».

Nik ez nizun erantzuteko asmorik; baiña agiriko Elkarte orretara zure lana bialdu dezun ezkero, zerbait erantzutera beartu nazu. Labur erantzutea nai nuke; baiña ez dakit zenbaiteraiño laburtu al izango dudan nere au.

* * *

1) —Nerea zorrotz eta mingarri egiña dedala, diozu zerean.

Ta egia diozu. Benetan larrigurea ematen zidan, dakizun gazte-talde orri itzerdi bat esateko gure zarren artean nabaitzen nuan bildurrak, alde batetik. Eta bestetik, nik nerea, euskaltzaiñak mindurik (baiña ez mintzearren), nere ikuspegia nolakoa zan kontura zitezen, idatzi bainuan. Eta ala atera zan nere lumatik, gozagarririk gabe. Orregatik, pozik entzun nituan Bilbo'ko billeran, nere kontra jaiki ziran itzak. Gero, izenpetu gabeko beste idazlan baten aurka jaiki ziran nere alde atera zitzaizkigun adiskide batzuek, eta ala «enpas» gelditu giñan alde bietakuok. Orregatik, ez nuan nere alde itzik atera.

2) —«Etxaniz jaunak —diozu— idazlan hontan, gertakizunak bere gixa antzaldatzen ditu...» Alegia, nik iruzurbidean jartzen ditudala nere irakurleak, Euskaltzaindiak bere artikuluen kontra jokatu balu bezela, kontu au adieraziaz.

Nik argi ta garbi adierazten det nere lan orretan:

—«...Baiña BOTOAK (orrelaxe izki nagusiz), (eta au da guretzat berria), gazteei «eskua pasatzen» ari diran «ZAR» batzuek eman dituzte. Eta *boto oien bidez* eman diote «ostikoa» don Manueli».

Beraz, *neretzat*, egun aretan «botoa» ukatu ziotenak, negargarri jokatu zuten. Eta ori garbi dago nere itzetan. Zergatik?...

Gogoan det Zaitegi apaizak Euskal Idazleei dei eginda, nola batu giñan bein Arantzazun. Aren asmoa, «Euskal Idazle Alkartea» sortzea zan. Asmo aren bideak itxi egin zizkioten, eta ezer erabaki gabe geron etxera itzuli giñan. Ni orduan ere, alperrik saiatu nintzan alde bietakoak adiskidetzen.

Orain, ostera, erreztasun guziak eman zaizkio, Euskaltzaindiari *desapioka* ari izan zaion gazte talde bati. Euskaltzaindi barruan baitzuten auek jokabide ori bere aulkitik aizatzen zuan NORBAIT.

Gazte-talde orren asmoak Euskaltzaindiak asetzen etzitualako, gazteok Euskaltzaindi berria eratzen asi ziran. Gaur Baiona'n, biar Ermua'n Euskaltzaindiaren zai egoteke, beren batzarrak egiten asi zitzaizkigun.

Areago oraindik; Euskaltzaindiaren barruan, bein, gazte kopetadun bat arro jaiki zan Euskaltzainburuari esanaz:

—«Aurrera egiten ausartzen ezpazan, kargua utz zezala».

Beste bein, gazte berak ala beste batek, ez naiz ontaz gerbi gogoratzen, au esan zigun euskaltzain guzioi:

—«Urrengo egunean Baiona'n batzekoak zirala, ta an erabakitzen zuten eran idatziko zutela andik aurrera». —Onelakotxe errespetoa zioten Euskaltzaindiari, gaur onen Euskaltzaindi alde beren buruak agertzen dituzten oiek.

BOTOAK EMAN BAIÑO LEN, egun batzuek aurretik, IZENPETU GABEKO idazlan bat azaldu zan Lekuona jauna jorratuaz. Entzutekoak izaten dira jende orren esanak, norbaitek izenordez idazten duanean!... Ba, ortantxe irrist egiñak ziran gure gazteok auzi ontan. Eta BOTO-EMAILLEAK itxuraz, gazte kopetadunei eta izen gabeko lan orri, arrazoi eman zioten Euskaltzainburuaren kontra.

Politena au da gaiñera: Lekuona'k epea eskatu zigun eta etzuan bein ere «H» betiko baztartu. Arantzazun, berriz, etzan erabaki nolako *presaz* eraman bear zan aldaketa. Mitxelena jaunak, oraintsu Apaizgaitegian eskeiñi dituan Erakusaldietan ere, orixe bera esan du:

—«Kontu au *luzea* izango da».

Beraz, alper-alperrikakoa izan da, don Manueli eman dioten miña.

Azkue'ren denboretan, oso oker ezpanago, bi urte baiño geiago iraun zuten «r» gandordunaren, «l» arrastodunaren, «x» ta «tx» izkien ezpaiak. Azkue bere alkitik botatzeko, naikoa aukera ta asti izan zuten, beraz. Baiña nor etzan lotsatzen orduan, Azkue baztartzen? Ontan esan nai det nere lanean, giza-mailla galdu degula gure egunotan.

3) —*Nik «alde guzitan komunistak ikusten ote-ditudan bildur zera...»*

Aldi batean, gazteak oso onartua niñuten. Amaika aldiz nere etxera etorri ziran, beren estuasunak lasaitzeko gogoz. Batek bein au esan zidan:

—«Zu zere denboraz aurrez jaio ziñan».

Alegia, gaurko gazteen girokoa zala nere irispidea. Alde bietako gazteak elkarren ezagun egiten asi ziranean, neri deitu zidaten, emengo gazteen gidari bezela Oiartzun'go Ugaldetxon bildu giñanean. Arrazkero ere, beti ontan nintzan Baiona'ko ZARREN kontra: aiek, gure gazteok komunistatzat errezegi artsen ote-zituzten kezkaz.

Baiña egun batean, idazle ezagun batek eta beste iru gidarik zabal-zabal agiri batean azaldu ziguten, beren mendekoak, «PRO CHINO» egin zitzaizkiela, ta berak talde ortatik ateratzekotan zirala orregatik. Ordutik asi nintzan sinisten, gure gazteen artean jende nastua sartua zebillela. Eta bada zerbaiten itxura: or datozkitzu, beintzat, sarri gazteok adieraziaz, «au ori ta ura «Felipetarrak» dirala ta beren alkartetik kanpora bota dituztela».

Izan ere, gure gazteen artean, oso errez sar ditezke, bai eskui-aldeko ta bai ezkerraldeko Euskalerria'ren etsai maltzurrak. Gero «traidore» dirala nabarmendu arren, ezpaizaie gure artean egurrik ematen asmo okerrez gure artean ari diranei.

Zure esana sendotzeko, au geitzen dezu zerean:

«Nik dakidanez, bat da euskaltzaiñen artean marxista bakarra, eta eztakit bere botuaz baliatu ahal izanen zuenik, Belgica'n baitago erbestetua».

Orain ba-dakizu oso oker zeundela ortan. Egia besterik izan baita. Gazteok, ondo lan eginda, bestaldeko euskaltzain guzien botoak ekarri bai zituzten, eta aien artean, orrena ere bai. Ez ori bakarrik. Boto guziak beren balioa izan zezaten, auek «pertsonalak» izatea ere, etzala bearrezkoa erabaki zuten, boto-aldi ontarako.

Jakiña! Nik eztet esan nai, euskaltzain oiek FEDE TXARREZ jokatu dutenik. Gazte-talde orren «propagandak» eragin diela esango nuke irristada ori.

Euskaltzaindiaren kontra goazela? Egia. Ta ortarako, Mitxelena jaunaren itz batzuek ditugu gogoan. Norbaitek esan omen zion, oraingo erabaki batzuek lengo Euskaltzaindiaren erabakien aurka zetozela. Mitxelenaren erantzuna, au izan zan:

—«Euskaltzindia uts-eziña al da?»

Orra giltza. Ez lengoa ta ez gaurkoa dira utseziñak. Eztiogu, beraz, eralguntza orri iñolako iraiñik egiten. Ontan irrist egin duala uste degu. Besterik ez.

* * *

Beste milla kontu esango nizkitzuke, nere giro ta ikuspegia zuri agertzeko gogoz, baiña naikoa luze dijoa nere au. Barka zaidazu azkenengo zerbait emen ezartzea.

Lengo batean, Txillardegi'k ZERUKO ARGIAN au esaten zigun:

—«Erronkari'n euskera galdu zala, ta Zuberoa'n ere ba-zijoala pikutara».

Txillardegi'k euskera sakonki ikasi duanik, ezin uka dezakegu. Ba al ditugu amar euskaldun berri, arek aiñean euskera ikasi dutenik? Ba dirudi, beraz, euskera biotzez maite duala. Ta ala ere, ori idatzita gero ba dirudi patxaran gelditu zaigula. Ezpaidu turutarik jotzen alde artan euskeraren alde gogor jo dezagun. Itxuraz, Zuberoa'n euskeraren eriotza atzeratzeko uste ta itxaropena galdu duala dirudi. Ta nik au diot: Zuberoa'n euskera salbatzeko esperantzarik ezpadute, nun jarri bear diote gure izkuntzari atzeraka etorri ez dedin esia?

Ta orren gaizki ikusten duten izkuntzari nola asi dira oztopo beta zaillak jartzen? Ta oztopo ori asmatu duana, ez ote-da maltzurki gure artean jokatzen ari dan etsai biziren bat?

Izan ere, «H» ori baiño oztopo utsagorik eta lege-gabekoagorik ezin asma zitekean, gu alkarrekin muturka jartzeko. Oguzten ez degun izkia alde batetik, eta erabiltzen dan eskualdetan, berdin erabiltzen ez dana bestetik. Be-Naparroa'n itz geiagotan sartzen baitute izki ori; ta Lapurdi'n eta Zuberoa'n gutxiagotan.



Eta Arantzazun eman ziguten BATASUNERAKO ARGI-BIDEA, are ta eragabeagoa iruditzen zaigu:

—«Nai zuanak *itz gutxi batzuetan* erabiltzea, ongi ikusia izango zala; ta *geiagotan erabiltzea* ere, ongi ikusia izango zala!»

Batasun bitxiagorik!... Bakoitzaren eskutan jarri, alajaiña, zenbat itzetan «H» ori sartu! Nun da or Batasuna?

* * *

Ni, erantzun billa joan nazaio oni ta ari; azkenengo aldiz, Mitxelena'ri nere estuasuna adieraziaz. Eta iñork eztit erantzunik ematen. Mitxelena'k auxe bakarrik erantzun zidan, bere Erakutsaldietan:

—«Konprenditzen zuala nere kasua».

Baiña orrekin, eztet nik galtzen, gure euskera oztopo berri ta BEARREZKO EZ DIRAN batzuekin ondamendira eramango ez ote degun kezka larria.

Beraz, or gelditzen da aidean, orain arte erantzunik izan ez duan nere galdera:

ZE ARRAZOI ITXURAZKO DEZUE BEARREZKO EZTAN OZTOPO ORREKIN EUSKERA EZ DALA ILKO, SIÑISTEKO?

Ba det onezkero, ixiltzeko ordua. Agur, adiskide.

Etxaniz'tar Nemesio

ATXURI'TIK AMARA'RA

Errege-egunean senide tarteko ikertalditxo bat egiñaz batera, nire lengusu S. Arrillaga'renean lasai-lasai nengoala alkar arteko autu-mautu aurrera joalarik, bat-patean benetako ametsaz esan eustan: «Ea, idatzi egiz AGUR'erako joan dan astean nire jazoriko gertakizun bat». «Ea bai, jardetsi neutsan, «esaidazu ia balio dauen edo!».

«Balio bearko», bere erantzuna «AGUR» aldizkariatzaz dan ezkero.

Ta berak aipaturiko zertxo au agoz-ago entsun neutsan lez bereala diñotsuet Agur-zaleok.

Aulan jardun eban Sabiñe'k: Baniñoan Gabon-zar aurregunean Donosti'runtz, Atxuri'tik urtenda arako bidea daroan bultzi-su-burdian, beti lez ondo jezarririk ta atseden aldi ta alik obeen igaro bide euskerazko zer bait irakurten nengoala.

Egun ortan nire irakurgaia AGUR en azkenengo alea zan, izan be.

Ene aldamenean Galizia'tar senar emazte bikote bat joian, gogaldi oneitarikoak biok, noizik-peingo begirakada bat nire aldizkariari jaurtigitzen ebelarik.

Nik, arriturik baiña badezpadaixil-mixillik, niarduan, eurak ezarian ezarian muiñ-barneko gurari bizia agirrazo arren. Alako baten, Gipuzkoa'ko mugak igaro ondoren, urduritxo samarbaiña alaikiro nireganaturik gallegasenarrak bota eustan: «Parka, baiñesker bero-beroak emongo dautsudaeuskaldun izparringi onen orrialdebat baidamostazu. Ez atan be bildurrik izan, Suiza'ra goaz emaztea tbiok, ta an euskaldun zerak entzungarriak ezeze txit onartuak be bdira, eta nire euskaldun lagunabatez be pozarren abegituko naieurentzat zertxo bait eroatekoan».

Poztu nintzan, tolesbageko gallegaonek aulako eskaria egiten eustalikusirik, ta «Kaixo gizon» jardeneutsan gaztelarrez —ez nekian hnik gallegoz mintzatzen— artu eadazu beingoan ez orrialde bakansoillik, illeroko izparringi au ososorik baizik. Nik ba, biar illuntzeBilbo'ratzerakoan, beste bat erosi nenke egitan, ta zuok ostera atzerriralur igorrak ur tantanak bezela, arrriko gauzen irakur-miñez diarduzudakustanez».

Zer gaiñeratu geinke Bilbo'ko ekaldunok?

At, atzerrian dabiltzanak sarraskotan euskal-zaletasunean eredu bkaiña damotsee nire gardiz, emegunotan beintzat, ia guraiña euskairakurgai izan da be, ots, AgKarmel, Zeruko Argia, tab. erdeldizparringiak bakarrik irakurten dagoioen ainbat eta ainbat euskaldu

Urte barria ereti ezin obea andetzeko.

Arregi'tar Josu

AGUR

II URTEA
10 ZENBAKIA

ILLEROKOA
1971 - OTSAILLA - 28

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

LIZARRAGA'TAR MIREN JOSUNE

†

Zenbaki au irarkolan dogula, il dala jakin dogu. Euskaldun zintzoa. Adizkide, emazte ta amarik maitekorrena izan zan Arregi'ren alarguna.

Bakar-abeslari bikaiña lenago Donostiar Abesbatz'ean; gero, emen, San Anton'goaren eusle indartsua, ta Mezatarako Euskal-abesti Saillekoa.

Bere seme dan eta lagun maitea dogun Arregi'tar Andoni'ri, ta onen sendi jator orri, atsekabe onetan, lagundu nai geuskioe (G. B.)

ELEIZ-ITUNA

Egun oneitan Espaiña'aldeko Gotzainak, Euskalerrikoak be bai, jakiña, Eleiz-ituna, konkordatoa, egiteko arauak iztertzen ei dabiltz.

Baiña, zergaitik eta zertarako Eleiz-ituna? — Itauntzen dogu guk.

Egia da, ludian izaera askotako gizonak gagoz, gorputz eta gogoz askotarikoa da gizona, baiña Kristo'k guri iratsiak guztientzako bardiñak eta guztiak, lege berezi barik, artzekoak dira.

Eleizearen eta laterriaren ardurapean sartzen diran gaiak dagozela? Baiña Barri Ona danera ez ete da sartzen, gatza lez, legamiña lez.

Laterriaren lanak eta Barri Onaren ondorenak Erriaren onerako badira, ez dira aurkalari izango. Baiña agintaritza bi lez eta euren onura-billa badabiltz, orduan bai, orduan barrutia zati bi egin bear.

* * *

«Itunen kondaira eleizearen negarren kondaira» dala diñoe.

Zergaitik? Itunetan Eleiezak bere eskubideak itzi egin bear izaten ditu: bere gotzaiñak aukeratzean, esaterako. Eta, bear bada, ezer irabazi barik, Barri Ona zabaltzeko bideetan beintzat.

Ituna egikeran lagun bat aurkitzen dau, baiña, baita, lagun orren arerioak bere arerio lez jartzen jakoz. Benetan negar-bidea, itunen bidea! Nork gura dau Eleizea bere areriokaz edo zapaltzalleakaz bat eginda ikusi? Zenbatek onegaitik Eleizatik alde egin ete dabe? Jokera au ez dogu onartzen, baiña...

Sarri itun-laguna okerreko bidetik joaten da. Eta orduan zein da Eleiza itunduak artu bear dauan bidea? Ixilik egon? Ituna apurtu? Eleiztarrak zapaldu? Ez ete jako aundien adiskidetasunagaz batera txikien asarrea etorriko?

* * *

«Zuen artean nagusi izan gure dauana, otsein izan bedi» esan euskun gure Jaunak. Eta orixe da ain zuzen be, Eleiza lez artu bear dogun bide bakarra: erria indartu, argitu, erriari lagundu, ta otseindu. «Txiroai Barri Ona emotea» ezaugarria da. Apaltasunaren bidea da gure bidea, ez aundikeri-bidea. Norbaitek esan dauanez «Eleizeak eta erri-agintariak ondo alkar artzen dabenean, zerbait txarto doa Eleiza-aldetik».

«Jaunaren itza kateatu barik» egon bearrekoa da, egia ta zuzentasuna baiño beste katerik ez dau bear. Eta itun bat, kate bat izan leiteke.

* * *

Zein da ba, gure eretxiz, Eleizearen bidea?

Lege bereziak itzi, kristiñauak beste erritarrakaz barditasunean bizi.

Eleiz-alkarteen eskubideak edozein alkarteren lakoak izan beitez, eta orrelan alkarte orreik obeto aldeztuko doguz. Gaur ondo aldeztuta dagozenik ezin geinke esan.

Irakastean, esaterako, Laterriaren eta Eleizearen edo beste edozeintzun ikastetxeak laguntza bardiña, ikusketa bardiña, azkatasun bardiña, baimendun bardiñak... baiña guztiak bear dan bidean jarrita. Zergaitik euskeraz irakasteko ikastola bereziak bear? Zergaitik ainbeste oztopo gaiak euskeraz irakasteko?

Epaiketarako eta gudaritzarako abadeentzat diran lege bereziak itzi daiguzan.

Abadeak Laterritik artzen daben saria be itzi egin bear litzake. Abadea bear daben erriak, abadearentzako lana daukeenak, eurak eutsi dagioela. Laterriak lenagoko zor bat daukala diñoe. Parkatu dagiogun. Zorionekoak txiroak!

Gotzaiñen aukerapena Jaunaren Erriaren aukeran izan beite. Lotsagarria orretan katigu egon bearra!

Itzi daiguzen aundikeriak! Izan gaitezen Jaunaren erri seia!

AGUR

ERRI-BIDE'KO ARAUAK

Batasunaren Bidean

ERRI-BIDE taldekook idazkerari buruz zertan gatozen bat aztertzen saiatu ondoren ona guztiok bat ontzat emon genduena:

—Batasunaren izenean zearo barritzen eta goikoz beeratzen jardun gabe, batasun-bidean orain arte eginda zegona aintzat artzea. Orrela, Euskaltzaindiak eta idazlerik garaienak erabilli izan duten idazkerari jarraitzea.

—Idazle bakoitzak askatasuna galdu ez dagian erabaki estuegirik ez artzea.

—Zein letra erabilli, aspaldi egiña dago aukera: Ots bakoitzeko ikur bakarra ta letra bakoitzeko bere ots bakarra. Elburu au betetzera ta osatzera etor daitekezan saiaketak ez txarto ikustea.

—Erdal izenak-eta idazteko euskerak bear ditun letraz gain beste letrak bere erabilli bear izango dira: c, qu, v ta abar.

—Idazgaillu aldetik eragozpenik ba'gendu, r, l, d, eta t, kakodunen ordez rr, ll, dd, eta tt, erabiltzea.

—Irakurleak, itza ezagutzen ez dauenak batez bere, itza oguzten jakin dezan eta ots bakoitzari bere ikurra dagokion ezkero, itz-amaieretako rr gogorra orrelaxe idaztea litzakela onena aitortu zan. Oitura bestelakoa dogu ordea ta zillegi izango da r biguna beti erabiltzea («Agur» ean r bakarra erabilliko dogu).

—Danok alkar aditzeko egiña bear dogu batasuna. Bereizkuntzak itzi ta alkartzen gaituna artu bearrean izango da euskalki bakoitza. Gitxienek erabiltzen dituen bereizkuntzak itzi egin bearko dira beraz. Letreri buruz ez ditugu artuko s ta z durundadunak, ez ü, h, dx, eta orrelakoak bere.

—J orain arte bezela erabiltzea. Oguzi beza euskalki bakoitzak bere erara. Bataio izenetan, Yon, Yokin, Yosu ta beste ebertar izenetan egoki litzakela Y idaztea, ori jatorrizko otsa dalako eta ots ori bardin oguzi araziko leusku letra orrek.

—Ñ ta ll kakodunaren edo bikoitzaren aurretik i jartzen saiatzea, konsonante ondoren izan ezik. Baitä andereiño, lumaiño, Beiñat eta onelakoetan ere.

—Bereiz-kakotxa (') ontarako erabiltzea:

— Izen propiotatik atzizkiak bereizteko.

— Baldiñezko aurrizkia (ba') bereizteko.

—Itzak-eta lotzeko barriz, marra edo zubitxoa erabiltzea: buru-belarri, belaun-burua eta abar.


* * *

Ona, irakurle, ERRI-BIDE taldekoak jarri dituen arauak. AGUR, talde orretan dago, ta ontzat artzen ditugu. Oneik asteko dira; lengoekin zubi bat egingo dogu ta aurrera astiro, zintzo ta itxuraz. Laster, urrengoak agertuko doguz, ta gure idazleak be artuko ditue.

AGUR

(Euskal-meza barriari buruz Arregi'tar Andoni'gaz izan dogun alkar-izketea, urrengo zenbakian argitalduko dogu).

SAN ANTON ABESBATZA



ITXINA Olerkia antzezten

1947'gn. urtea zear SAN ANTON'go Abesbatza jaio zan. Adizkide arteko talde bat alkartu zan eta ereserti bidea aukeratuz gure erriko jakintza ta betikotasuna landu ta zabaltzea erabagi eben.

1949'ngo Erregeen Egunean, jakiñeko bere lenengo ateraldia egin eban «Campos» antzokian, Bengoa jauna zuzendari.

Arrezkero ta etenik bage, SAN ANTON abesbatz onek euskal eresia abestu izan dau edozelako inguruetan: antzoki, enparantz, pillota-leku, eleiz, ostikoketa-zelai ta abar, Bizkai'ko baztar guztietan, baita Euskalerriko beste gure anai geienen artean be. Bengoa jaunaren zuzentzapean asieran, 1952'gnetik onuntz Arregi eresgillearenean beti.

Abes-sariketa danetarikoak irabazi izan dauz. Eresi-atal barri ta eder asko lenengoz agertu be bai. ITXINA olerkia euron artean bat, Arregi'tar Andoni'k berak egiña, au ta Intxausti eta Gonzalez-Bastida eresgilleen euskal mezak.

Gazteiz, Donostia, Bilbao ta Gernika'n osotu zan II Euskal Abesti Jaialdian azken leiaketako lau onenak emoteko eukeratua izan zan. Olaizola aundia bizi zala, Bilbao'n eta Donostia'n eskeñi yakozan omenaldiak be onen ardurapean bete ziran, eresgille gorengo orren eta berak erriari itzi dautsazan eresi jatorrenak abestuz.

Aldiaren gora-berak eraginda, taldekoen aldaketak 70'etik 100'ra bitartekoak izan dira. Gaur larogeta bost abots-bietakoak osotzen dabe.

Abesbatz onen babespean kirol eta jakintza egikizun asko bete izan da: itzaldi, euskal-ikastol, mendigoizaletza, pillota, dantza ta abar.

Gure zorinak Andoni'ri ta berakin orren jator jokatzen dakien lagun pillo eder orri.

ASTI

EUSKERA

ERDERAZ-IDAZTEN

Urtarrilleko «AGUR»'en «salatarik» izenpetuta agertzen zan idazlanari jarrai leiskio. Arek esaten zuanez «Idazlea nolakoa kritikea alakoa» izaten ei da. Linazasoro, Pelai Orozko edo Artetxe jauneri ez zaie erderaz idazten dutenean parkatzen. Mitxelena edo Haritchelhar izan ezkero erdal zabaltzailleak... ixillik! H'gaz batera iraultzailleen parkamen osoa irabazi dabe-eta.

Baiña, orain berriz irugarren erdal-idazlea agertu zaigu: Aita Luis Villasante, Euskaltzaindi'ko Lendakaria bera. «Zeruko Argia»'n Joseba Intxausti'k diñoanez: «Beragan usario zahar den legea hautsiaz, Aita Villasantek erdal liburuska bat eskaini digun oraingoan».

Usario zarra erderaz idaztea? Ona emen «La Gran Enciclopedia Vasca»'k argitaratutako euskal idazleen antoloji dalako ortatik artu doguna:

En castellano: Historia de la Literatura Vasca, Bilbao 1961; Angeles Sorazu, (2 vol.), **Bilbao 1950-51; San Martín de la Ascensión Loinaz, Beasain 1962; Voces Bascongadas diferenciales** (edición del diccionario inédito del P. Añibarro), **1964; Gero de Pedro de Axular** (edición del texto vascongado con traducción castellana), **Barcelona 1964; Vascuence** (en «Gran Enciclopedia del Mundo», tomo 21, España, Literatura), **1967.**

Ikusten dogunez idazle ospetsu orrek ez dau «usario zaharrik hautsi», aspaldiko oitureari jarraitu baiño.

Euskeraz bere, lan ederrak egin ditu, ta ez naiz ni iñor ezetariko kritikarik egiteko, baiña begoz gauzak argi ta garbi, bear dan neurrian. Euskaltzaindi'an nonor diran jaun oneik eredu ona emoten alegindu bear litzakez ta erderaz idatzi bear ba'dute (eurak jakingo dute zergaitik) ixildu beitez euren nortasunagan oiñarritzen diranen abots garratzak.

ARENAZA'K

Pozak eta kezkak

Urtarrilleko zenbakian, 2'gn. orri onetan egindako oarrari buruz era askotako kritikak sortu dira. Batzuk, iritzi guztieri ateak zabaldu bear dautseguzala diñoskue. Beste batzuk ondo dagola jaramonik ez egitea.

Gauzak obeto aztertu ta gero erdiko bidea artzea komeni dala uste dot... ta kritikak bere argitaratuko doguz, baiña, ots! Azpijokoan gure aldizkariaren aurka dabiltzen «jauntxo» batzuk asmatu ta zirikatutako idazlanik ez dogu argitaratuko ta «Azpijokoa da, labankeriz naiz gogorkeriz gure zuzendariaren kemena bigundu nai izatea».

* * *

Urtarrilleko batzarrean, Euskaltzaindikoak, andereiñoak aukeratutako «Giza-Soiñ» iztegiari buruz zerbait erabakitzea onartu eben, erderazko izparringietan irakurri dogunez. Guk ez dautsegu andereiño talde orri jakituririk ukatuko, baiña... ez ete dago euskaltzaiñen artean osagillerik? Ez dozu uste irakurle, onein eskuetan edo oneik aukeratutako beste osagille edo izkuntzalari batzuen eskuetan iztea egokiagoa izango litzakenik? Beste alde batetik or dago Goikoetxea'tar Iñaki Aitak, egindako «Giza-Soiña»... ala euskaltzaiñ onen idazkerak ez dau ezertarako balio? Itxaron bearko.

* * *

Iztegiak aitatu doguz eta badago albiste arrigarriagorik. Adi-bidez, oraintsu Bilbo'n izandako ikastaro batzuetan esan zanez «ventana» esateko, leioa bezin jatorra ie da «bentanea». *Gure ustez iztegia orrela osotzen badogu euskerea izango da munduko izkuntzarik aberatsena: leioa,* bentanea *ta* fenetrea; *hermano esateko anaia,* hermanoa *ta* frerea, *eta abar eta abar.*

Orrez gaiñera itzak osorik esaten irakatsi bear ei jako erriari... zahhhharra hhhhori, hhhemen eta abar... gure izkuntzaren etorkizuna argitu da!

* * *

Txarren-txarrena, ikastaro orreitan 150 inguru ikasle asi ei ziran euskera ikasten. Gero apurka-apurka gitxitu ei ziran eta azken egunetan 30 joaten ei ziran. Egunik garrantzitsuenean, Patxi Altuna, Gaztañaga, Aranalde ta Satrustegi'k, eztabaida izan ebenean, geienak, amaitu orduko urtetzen asi ziran... Egizkoa ete da euskal zaletasuna? Euskerea «batu» ezkero baztertuko ete doguz oztopo guztiak? Guk ez dogu olakorik siñesten. Maitasunik eza aundiegia da ta bizi dan euskerea, kili-kolo bizi dala, ilten izten badogu alperrik izango dira «euskeranto» sorketa guztiak.

PIPER-ZIRI

MUNDUKO IZKUNTZAK

George Washington Universidadeko elejakitunak diñoenez 600'en bat izkuntza dira munduan; alan be gitxienez milloa batetik gora mintzatzen dabezenak 130. Amaren altzoan ikasitakoetan geien mintzatzen dana txino mandarin da; 460 milloak darabille. Inglesa 250 milloak. Alan be inglesa da munduan zabalduena eta geien erabiltzen dana bai batzarretan eta eskoletan. Indian «hindu» itz egiten dabe 160 milloak baiña inglesa erabilli oi dabe geien probintzietan.

Inglesaren ondoren geien mintzatzen diranak: espaiñarra, 140 milloak; rusoa 130 milloak; alemana 100 milloak; japondarra 95; arabetarra 80 milloak; bengalia 75 milloak; portugaldarra 75 milloak; prantzesa 65 milloak; italiarra 55 milloak. Inglesa dago lenengo maillan. Kerizpe gitxi dagitsoe beste izkuntzak.

Asmatutako izkuntzak

Bosteun izkuntza asmatu dira XVIII gizalditik gure egunetara. Erriak eta gizonak urreratu ta batu egin nai izan dabez. Asmatutako izkuntza geienok lenagotik mintzatzen ziran batzuen nastea dira. Orain arte ez dabe artu indarrik errietan. Ona batzuen izenak: *norial, valtpari, espelin, bapal, ro, latinesce, balta, idioma neutral, interglossa, interlingue...* Guztiak ilda geratu dira. Itxaorpen aundia sortu eben batzuk: Ballac izenekoa, Leon Ballac jaunak 1.859'gnean, asmatu eban; lanzue bleue izena be izan eban; ainbat liburu argitaratu ziran izkuntza onetan, baiña dana or geratu zan. Volpiik izenekoa, 1.879'gnean, Juan Martin Scheleyer apaizak asmatu eban. Zortzi edo amar urteko bizia izan eban, gero il. Esperanto agertu zan arrezkero.

Geroago be mundu osorako izkuntza bakar bat jarteko egin izan dira alegiñak ta onela *ido, esperantido, occidental* eta beste batzuk sortu ziran. Oneik be il dira.

Azken aldian inglesak be alegiñak egin dabez onetan. *Basic english* izan da ezagutuena. Churchill'ek be indarra emon eutsan azkeneko guda ondorean; Ogden eta Richards dira sortu ebenak. 850 itz daukoz. Sortu ebenak diñoenez 850 itzok naiko ei dira nai dana esateko. *Basic english* be besteak lez il da. Orain, or diardue inglesak beste bat sortu nairik. Artur Woodhund da asmatzallea; lengoen antzekoa izan bear dau.

Esperantoa bakarrik itz egiten da gaur; ba-dau bere indarra, ta Unesko'k aurrera eroan nai dau. Zomenof bere egillea. Ainbat liburu egin dira izkuntza ontan. Or diñoe, Amerikarrak *Spanglish* barri bat sortu dabela, ta espaiñarrak daukazen lurraldeetako ateak inglesari zabaltzeko ei-da; euskaldun jatorren ateak gaztelerari zabaltzeko dan lez, *euskerantoa.*

Guk euskaldunok ba-daukagu gure izkuntza: EUSKEREA, iñork ez daki non eta noz sortu zan... Ba-leiteke noz edo noz munduak izkuntza bakarra izatea. Guk geure izkuntza zarra zaindu dagigun. Gure Euskerea zaindu ta indartu. Euskeraz itz egin beti. Umetxoai euskerea irakatsi. Euskerea, geure izakeraren ezaupiderik onena dogu. Geure nortasuna agertzen dau. Geure enda-erraza. Gizonak izkuntza barriak asmatzen diarduen bitartean illunpetan galtzen dan eta jakitunen arrigarri dan gure Euskerea jagon eta zaindu dagigun!

GOIRIA

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

LITURJI-ITZULKETAK

Iraillez Apaizgaitegian emandako itzaldietan esan zituan Mitxelena jaunak «jendaurrean» zenbait-zenbait gauza, itza ateratzera beartzen nautenak. «Plaza-gizon» ez naizenez gero (ala izatea ez bait dago nor-beraren esku), zillegi bekit eta barka bedi zait ordungo izlariak, itzegiñaz orduan erantzuteko ordez, idatziz jardutea oraingo idaz-lan batean. Ikus AGUR'en 8'gn. alean 14'gn. orrialdean.

* * *

Batikano Bigarrenaz gerokoan danok gerala Eliza? egia esan, leenagotik ere alaxe giñan; ori bai, garrantzi geiago eman zaio ondorenean, kristau guziak elkar Eliza diralazko alderdiari. Eta ori adierazi nai duanean, arrazoi du Mitxelenak.

Liturji-itzulketa egiterakoan, eliz-gizon eta bestelako, guzitarik elkarlana gintzan bildurik egin izan bagenu, obe izango zala diotenean, arrazoi izan dezake Mitxelena eta Zaloña jaunek. Jakiña, ongi egitea baiño obeki egitea, askoz obe; dana eta ongien egitea, berriz, are ta are obe.

Baidan, jaunak, «aal danean aal dana, nere andre baldana». Orregatik, galdera batzuk egitera beartzen naute Mitxelena'ren eta Zaloña'ren kezka larriek.

* * *

1'go: Liturji-euskeratze lana egiteko gerturik daudenak eta lan orri gogotsu ekingo lioketenak, zenbat izendatuko lizkidakete?

2'gn: Zenbat eliztar esango lizkidakete, sei urteren buruan astean egun bi eta urtean bein amabostaldia itzulketan jarduteko gertu egon zitekeanak?

3'gn: Euskeratzailleen talderako izendatuko al lizkidakete norbaitzuk, apaiz «diru-zaleokin» batean astero-astero egun bat itzulketalanean egiteko luketenak —duan edo utsean egin ere—, urtea joan eta urtea etorri sei urtetik gora, lanak noiz bukatuko diran aztarrenik gabe?

4'gn: Miñik ez bada ere, naigaberik aski agertzen zigun Mitxelena jaunak berari beintzat ez eta beste erritar iñori ere laguntzarik eskatu etzitelako. Gure itzulketa guzia beti elkar-lanean egin oi dugu; euskera bezain azkar argitaratzeko presa eman oi digute; beti Donosti'ko Apaizgaitegian batzartu oi gera, Baiona, Bizkai, Gipuzko eta Naparroa'koentzat erdian biltzearren. Bakoitzean toki-aldatzen, berriz, ezin ibilli, eskuragarri eskura liburu asko bear izaten ditugu-ta. Elkar-langintza ontara ekarri ditezken zenbat erritar, urruti naiz gertu bizi, izenda dezazkete?

5'gn: Zubi-gintzarako etzaio deitzen ez iñongo sendalariri, ez legegizon ez apaizi, ezta arrantzale ta artzaiñi ere. Ortan ikasiak diran injenieru eta teknikariek lukete, noski, itza; ortan trebeturiko esku-langilleek berriz, eskuak bete lan.

Sendalaritzarako ere zubi-gintzan ari dan injenieruari deitzen etzaion bezalatsu.

Idazteunak edo Liburu Santuak, Eliz-otoitzak, elizkizunetarako eta Sakramentuak emateko itzak izkuntza batetik bestera aldatzerakoan, nortzuk ditezke zubigiñak? Idazteunak, Liturjia eta Teolojia (gutxiago ala geiago) ikasi dutenak dira ortarakoak, nik uste, beste izkuntzaz gaiñera euskeraz ere zertxobait baldin badakite beintzat.

Ba dakit, apaizkiez gaiñera beste eliztar geiagok ere jakin dezaketela sakon eta oparo gai oien berri; eta jakin bear lukete. Bear genituzke kristau-errian orietan asko ikasiak. Baiña, baiña... gaurkoz...

6'gn: Azkenik, iraillean Mitxelena jaunak, izkuntzari buruz ari zanez eta «euskera batua» gaiari zegokionez, amar milla uts eta akats atera izan balizkio Liturji euskeralpenari, tartean gabiltzanok, ala ere, gure gustora zuzendu eziñeko mamu bat baiño geiago izendatu-aal izango genizkoikean geure lanen artetik.

Oso gogoan daukat Mitxelena'k esan zuana: «NI naizanez ez-baiña, «Gu geranez diot au». Etzala izkuntzalari danez ari itzegiten; beste guzien arteko edozein eliztar danez ari zala, baizik, alegia. Baiña zertarako bereizkuntza ori?

Izkuntza aldetik amar milla oker argibidetu izan balitu eta orduan beste bat geiago erantsiaz aipatu izan balu «jendaurrean» izendatu zuana, ulertuko nion Mitxelena jaunari eta aitortuko maisukiro ari zala, dagokionez. Orain, berriz berak Jon Garate'ri egozten diona datorkit burura: «bere lanbidean mediku on baiño...»

Bein ontara ezkero, eskertzeko gauza dala derizkiot, Zaloña jaunak ezagutzen eta aitortzen diguna: luzaroko jarduna ari dugula eta taldeko elkar-lanean diardugula.

GAZTAÑAGA'k

ANTZERKI LABURRAK

itzak: Maleruski
jazkera: Mirrizki
soiñua: Txoroski

(toki txiki agertoki)

Luki. — *(serioski)* Klarki dioat, oiek automatikalki jaurtiki...

Sorki. — *(amultsuki)* Orren supitoki?

Luki. — *(animoski)* Personalki ez diat besterik aurki...

Sorki. — *(bigunki)* Noski; baiña ofizialki izaki...

Luki. — *(irazeki)* Perfektoki diok, orren aitzeki...

Sorki. — *(superbiziki)* Trankilki adi ta jarri egoki, gizonki...

Luki. — *(umilki)* Arrazoi duk ik, aproposki...

Sorki. — *(amikalki)* Ikusten? Akort goazik...

Luki. — *(tiernoki)* Ados gerala ikuski...

(estalki jaulki munstroki)

* * *

Euskera Shopping Centre

Konforme nago = Maxi,
p. v. p. nueve pesetas

Konprome nago = Mini,
p. v. p. beratzi pesetas

Bat nator = Midi,
p. v. p. bederatzi laurden

Ados nator = Ridi,
p. v. p. Hiru lau

Hitzak **H**ondo **H**idazt
Hoitura **H**arin **H**artz

Mekanotuvo, S. A.

ETXEBARRIA'TAR JUAN AN

GAZTEA

ERRIETAKO GAZTEEN UTSA

Lenengo esan bear dodana auxe da: AGUR'eko irakurleai parkamena eskatzen dautsedala neure esaera txarragaitik. Ni ointxe denpora gitxi asi naz euskera ikasten eta irakurten, eta olan be, lenengoz gaur da onango lan bat idazten dodana AGUR'erako.

Nire lan au neure buruz aterata dago, Nire lagun batzuk, onexen antzekoa ANAITASUNA'n be atera neikela esan arren. Baiña nik ANAITASUNA gitxi irakurri dot.

Ointxe lau urte joan nintzan Basauri'ra, batxiller ikasteko, eta bertan iru urte osoak ikasai nebazan eta laugarrenari lau asignatura itzi neutsazan ezin ikasita. Lengo urteko udan delineante ikastea pentsa neban, neure erriko ikastolan, eta olan egin dot. Basauri'tik nire errira etorrita, aldakuntza aundi bat ikusi dot gazteen artean, eta orixe esan edo erakutsi gura dautseet AGUR'eko irakurleai.

* * *

Asi gaitezen Basauri'ko gazteetatik berbaz.

Basauri'ko gazteak, neure ustez, guztiz argiak dira. Euren jantziak, euren uleak eta euren organizaziñoak be onak.

Ni neuk auxe ikusi dot: gazte batzuk afiziño andiak daukez futbolera, beste batzuk basora... eta an be ba dagoz beste batzuk ezetarako onenbeste afiziño ez daukeenak, baiña, gitxi gora-bera, lagunen artean egiten diran taldeak geiago dira, bai euren afiziñoetarako eta bai euren bearretarako.

Oin Basauri eredu lez ikusita, gure erriko edo Arratia'ko gazteai begira berba egin daigun.

Lenengo esan bear doguna auxe da: gure gazteak ba doaz, apurka-apurka, aurreratuaz, baiña ez indar askogaz.

Guk, onetako gazteak, afiziño andia daukagu jolas-geletara, ogei edo ogetamar ogerleko ordainduta. Onetara joaten gareanok ez dogu pentsaten gure anai txikerretan eta onen lagunetan, eta orduan euren ardurarik ez dogu artzen, eurentzat jolas-aldirik ez dogu ipinten, eurak zinetara eta jolas-geletara sartzea galarazota euki arren.

Ez dogu buruko miñik erabilten talde batzuk egiteko: basora urteerak, erriko jaiak egiteko. Puntu onetan ni ikaratu egiten naz eta diñot: Zergaitik ez doguz jaiak guk gazteak egiten? Errezagoa da gure errietako agintariak egin dagiezela eta guk, gero, jai politak badira ondo ibilli eta guztetan ez bajakuz, agintariari begira, txarto berba egin.

Ze jente gitxi egon da! — esaten dogu, baiña nik esango neuskioe: Nor etorriko da ba zure errira zeu beste errietara edo jolas-geletara joaten bazara zeure erriko jaiak egin barik?

Orregaitik ba, gure erriak, nire ustez, ez daukee gazteen indarrik eta onelan ezin leike ezer egin.

Nik esango neuke ba: Itzi dagiguzen zine eta jolas-geletako aize txarrak eta gure errietako aize ederrak artu daiguzen.

JESUS ASTONDOA'k

ITZ UTSAK... BURUAK UTSAGO

Gizonak or zear dabiltza, Illargira joan-etorrietan edo ararteko bideak robotakin urratzen, bai Ipar-Amerikako kapitalista gizartean eta baita Errusia'ko sozialismoaren zeruan. Ekintza orreitan gaztatzen diran diru mordoak, ez ei dira alperrikoak... baiña ez dozu uste irakurle lelengo mundu onetako gauza asko zuzentzea premiña aundiagokoa danik? Egunero millaka ilten diraneen gosea asetzea? basamortuak diran lurrak onerako lantzea? Guda, ezbardintasunak eta beste zitalkeri guztiak, laguntza bidez baztertzea?

Eta onela luzaro jarraituko genduke alperriko ametsetan, ez dago orretarako Borondate onik eta. Mundu nabarmen onetan, gu euskaldunok, iñurri kabitxo bat, besterik ez gara. Iñurriak langilleak ei dira, baiña nere ustez, iñurrien artean bere, izango dira alperrak, okerrak, berekorrak, nastezaleak, guzurzaleak eta abar; itz baten esanda: Borondate txarrekoak. Euskalerria giro baltzean bizi danik ezin ukatu, ez dogu borondate onik kabi onetako iñurriak erakusten eta. Gitxi gara ta iñurritegi aundiagoak daukaguz gure inguruan, bear bada, egun batetik bestera gu iruntsi naian, baiña gu... lotan geienak; eta itxarrik dagozanak? Itxarrik dagozanak lotsagarriago orraindik, euren arteko burruka bizian, alkar joten, edo gitxienez «narrua» kentzen. Ori argi dago. Ez jakiñen artean edozer esatea, esamesak zabaltzea besteak edozelan salatzea ez da arritzeko, baiña «kultura dun» gizonak orrela jokatzea siñestu eziñekoa da; gogorragoa oraindiño, kulturadun gizon ori abadea bada. Iritzi batek bultzatuta angoakin edo emengoakin bat egitea, ikur bateri oratzea, eztabaida bidezkoa da baña gitxienez, bere eguneroko eginkizunetan Kristoren irudia erakutsi bearko dausku. Kristo txiroen alde, zapalduen alde, erriaren alde, justiziaren alde agertu zan beti... orregaitik il eben; baiña Kristo egiagaz baliatu zan, Kristok ez eban guzurrik onartzen; eta abadeak egizko abade danak beintzat, Kristoren antzekoa izateko «zeozer» erakutsi bearko dau, ez dau guzurrez betetako itzaldi edo idazlanik egin bearko; gauzak zelan diran ez badakiz ondo ikasi ta aztertu ondoren esan bearko ditu. Ala abadetza kereizpe berezitzat artu ete du? Abadetza obeto azpijokoa egiteko artu ete du? Siñesmena, ez Eleiza ofizialagaz bakarrik, Kristogaz be galdu ote du? Inguruko ta abade lagunak ezer jakin barik, zergaitik arein izenean guzurrak zabaldu? Ori lagunen gogo onagaz olgetan ibiltea da, errespetorik ez izatea. Ori maltzurra izatea da.

«Ni egia naz» esan eban Arek eta Aren modukoa izateko ezin leike guzurrik zabaldu. Gutzat bestelako gizonentzat bere gauza itsusia, motza da ori... baiña abadearentzat?

Zenbat etiketa jartzen dira uts-utsean. Gaur «burgués», «proletario», «kapitalista», «sozialista», «demokrata»... itzak dira, itz utsak. Aoz-ao dabiltza ta gitxik dakite zer esan nai daben; baiña esan, ekin, albokoari bota norberaren burua espilluan ikusi barik... nun dago zintzotasuna? Aspaldian pikutan!

Baiña nortzuk dira egizko langilleak, benetako proletarioak? eta zeintzuk burgesak? Burgesa edo proletario *izatea* da, ez esatea. Proletario da iñoren azpian lan egin eta bere izerdiagaz askotan jateko aiña irabazten ez dabena, bere lanaren giarrea ugazabak artzen daue...

Baiña sarritan proletario ori izan leiteke pentzakeraz burgesa: bere Iganderoko futbola, noizik beingo ziñea, eguneroko txikitoak edan ezkero beste aldakuntzarik nai ez edo lortzeko ezer egiten ez dauana.

Eta zer da burgesa? Bizi-modu egoki baten jaube izanik, erriaren ta langillearen giroa ikusi arren, gizartea aldatzeko, obetzeko ezer egiten ez dauana. «Ni ondo bizi naz eta besteak or konpon», au da izakera burgesaren mamiña. Baliteke ordea, dirua euki arren pentzakeraz burgesa ez izatea baiña askotan miñez bakarrik izaten dira olakoak... eta olakoak asko dagoz edo gagoz gure artean. Bakoitzak aztertu bei bere burua iñori «etiketarik» jarri baño len.

Zenbat lerdokeri entzun bear izaten dira Ikastetxe, Dantza-leku, Club eta olako lekuetan eta ez gazteen aoz bakarrik, adiñekoen aoz baiño.

Besteari «narrua» kendu ta norberaren lantegian, aitaren lantegian edo dendan, norberaren etxean problema garratzak euki. Gabonetako zugatzak, txartelak eta argiak burgestzat bota ta norberak etxea beterik euki; konsumoko gizartea gora ta bera erabilli ta norberak etxea orretariko tramaukuluz bete eta abar eta abar.

Ez dago, ez, zintzotasunik, ez dago borondate onik gure artean eta ori ikusten ez dabena itsua da. Irakurleen batek esango dau eta ori berori zelakoa ete da? Lelen-lelengo neuk jakin nai neuke baiña bitartean kontuz ibiliko naz iñor «alan» edo «olan» izendatu baiño len.

ARENAZA'TAR JOSU

BURU-AUSTE BAT

Egunkaria artu ta lenengo orrian Charles «Conny» Liston burrukalaria il zala irakurri neban. Lenengotan ez neutsan garrantzi aundirik emon. Aimbeste ilten dira... Urrengo egunetan droga ta «heroina» deritxona artzen ebazala ta onek eraginda il zala ekarran; izpar onek arduraturik jarri ninduan. Gogorapen asko ta buruauste gogor bat etorri yatazan orduan burura.

Izparringiak ez ekarren zergaitik bizi izan zan orrela burrukalari au. Zer jazoten ete zan aren barruan? Ez dot uste geiago barik artuten ebazanik droga orreik. Ez ete eban entzutetsu ta ospetsu izateak bere burua betetzen? Bere erribaltzaren eskubideetan aurrerakizunik ikusi-ezagaitik ete zan? Ala bere gazte-bizitza aaztu eziñagaitik? Ez dakit. Baiña ez naz alan eta guztiz bere arrituten.

Asko dira gaur bere drogakin eta beti moskortuta bizi diranak, baita geure errian be. Gizon eta gazte onein biotzak geienetan utsik aurkituten dira, ta utsune au eragiten daben bide asko dagoz. Sarritan ezkeson erruagaitik izaten da; emazteak edo senarrak eta seme-alabak gizonari edo andreari maitasunik ederazoten ez dautseelako. Bestetan emazte-gai edo senar-gai baten bear izanean egon eta ez dabelako euren biotzaren utsune ta bakartade ori betetzeko mutillik edo neskatillarik aurkitzen. Beste batzuk euren bizitzari zentzunik ez dautseelako aurkituten. Beste sarri askotan asmo edo ideal bat bete ezinda (mundu zuzenago bat egiteko burrukan, aberri bat sortuteko burrukan, langille arloko burrukan, gizaeskubideen alde burrukan... diarduen askok) itxaropena galduten dabe ta orduan, errezena, aaztu ta kito. Jokabide beiñena ta zuzenena ete dan au bururatu yat, baiña ez; ez naz arritu bear gauza oneik ikusi ta jakinda, gizon eta gazte onen jakobidea ulertuten dot, baiña ez dot onartuten. Onein barruak utsik eta aburtuta dagoz. Au dala ta drogara ta moskorrera joten dabe, euren egoera aaztuteko.

Ezer lortuten dabe jokabide orregaz? Ez dot uste. Ezer lortutea nai badogu, ezin geinke jokabide au gure bizitzan artu. Ez dogu dana lortuko dogunik uste izan bear, baiña idealismo larregi izaten dogu ta ormea jo bear izaten dogu gero. Buruauste gogorrak izango doguz, bai zigorrak, etxeko ta lagunen ulertu-eziñak, erriaren erantzunik eza ta abar, baiña ez gaitu orrek bildurtu ta atzera eragin bear. Guk ez badogu erria itxaurtutea lortuten, beste batzuk lortuko dabe, baiña geure aalegiñagaz be indartuta, ez dira onek be alperrik izango-ta, ostantzean gure ostean datozenak euren eragozpen eta ostopo bardiñak eukiko dabez. Droga ta moskorrakin ez dogu aurrerakizunik egiten; geldi egonda ez dogu ezer egingo ta lortuko. Ekintzak eta burrukak illarte iraun bear dau; guk emen ezer lortu ez arren, beste bizitzan beintzat saria eukiko dogu, kristiñauok zinisten dogun lez. Lur onetan be gure lana beste batzuk artuko dabe, ez da alperrik lotuko, ta orain ezer egiten ez badogu, beranduago edo iñoiz bere ez dogu askatasunik lortuko, ez doguz gure erriaren eskubideak lortuko.

ATANO

EUSKAL HIT PARADE

Ez dogu ezer askorik jakin izan Urtarrilleko gora-beretzaz, auxe bakarrik eta ez da gitxi: Estitxu datorrela indartsu gorontz, eta orrenbeste erakutsi euskun bilbotarroi, il onetako 14'an emen emon euskun erestaldi zoragarrian. Ta ez zan makala izan, Biotz-Alai abesbatzaren ekiñaldi biren erdian Estitxu gain-gaiñean agertzea. Ori ta, Biotz-Alai'koak eurak eskeiñi euskuena ezinbestekoak izan ziran; oneik gure abesti zarretan zoragarri agertu ba'yakuzan be, gitxiago abesten diran bi izan yatazan atsegiñen: Mokoroa'ren «Olentzaro» ta errusitarren doiñuakin euskeraz abestu eben «Guda Zitala», orrelako abots zakonik nun gaur? Ez datik diskorik dauken, Ares jaunak esan bearko dausku, ta salketa saillean sartzen diranean, noraiño gora egiten daben be bai.

Asi gadizan baiña, jaun onek bialdu dauskun igazko urte osoan gertatu zanaren barri emoten: Leiaketa gogorra izan dan. Urretxindorrak, Libarona, Lertxundi eta Urretxindorrak barriz, izan dira lau aroetako garaille. Urtearen amairako, izen barriak etozan gora: Fernando Unsain, Xabier Madina, Carlos Mungia, eta... Luis Mariano, barriak edo indarbarrituta gora datozanak, ta ixilik-mixilik antzera, danba! Urtarrillean «Mocedades» bere «O Pello Pello» gaz, ekiñaldi gogorrean Estitxu'gaz eta onen «Bakarrik» zoragarri orregaz. Udabarriko txorrotxioak ez dira makalak izango. Nork esango eban Etxaniz jaunak bideak zabaltzen, giro barriko abestiak asmatzen asi zanean: «Antoni» «Aixa Felixa» ta areik, onelako ondorenik etorriko zanik. Labegeri jaunak jarri ginduzan bide egokian eta emen gaur ondorenak.

Ta eresi zaleak ba-dauke nun aukeratu. Berandu samar ibilli arren, oraindik ba-dogu astia datorren Epaillean Arrasaten izango dan zortzikoteen leiaketara jaon zaitean dei egiteko. Joan zaite, ez zara damutuko; Epaillaren 11'gnean. Arrasate'ko Gurea zinean.

ASTI

MENDIKO TA BESTE KIROL BATZUK

Urtero, leenengo illetan, ospatuten dabez mendigoizale bazkunak euren guztireko batzarrak. Igarotako urtean izan dabezan eginkizun guztien gora-beran barri bazkideai emoteko da, bai-ta be sartutako urterako batzordiak eraldu dabezan eginkizunak adieraziteko be. Sarritan, geienetan, Batzordeak adieraziten dabena aintzat, ontzat artzen da, batzartuko guztien atsegingarri ezpada-be, batzuk euren eretxiak adieraziten ez diralako ausartuten eta beste banaka bat batzartuen aspergarri izango diran bildurraz, euren eritxiak ez diralakoan ontzat artuko, edo bai-ta ezer adierazi ezik, besteak egiten dabenai akatzak aurkituteko era obeagoan geratzen diralako eurok.


Gu, jakiña, urtean orretariko batzar baten bakarrik izaten gara, mendigoizale bazkun bateko bazkideak bakarrik garelako, baiña, ziurtasun ia osoaz esan geinke batzarrik geien orreek alkarren antzerakoak izaten dirala; Batzordeak adierazi dabeena amén egin da kitu, naita gero ontzat artukoa egin ez. Ori bide dala, oldozkor egoten naz batzar orretan askoren arduragabetasuna ikusita, zerbait geiago, ondasungarriago erabagi ta artu litzakelako beeratan danontzako ongarri izan litzakena. Baten baiño sarriago geure eretxitxuak aurkeztu-be egiten doguz nai-ta beti ontzat artuak izan ez arren, mendigoizale asko diralako uste dabenak mendira abiadan gallurrera igon, bertan dagon mendikutxan euren edo bazkunen txartela sartu ta igon daben baiño abiada andiagoaz jatsitea naiko dala. Baiña ez, zerbait geiago egin litzake mendian ta egin bear dogu eusko mendigoizaleok geure ibilkeratan; bidezior, aitz-zulo ta okolluak ondo arakatu euretako jakin-garriren bat ezagutu barik ba-lego edo, mendi ortan zer landeredi (flora) dagoan, zein abeldi (fauna) eztago gauza aundirik gure mendietan; ze aberastasun daben inguru areek; zelan diran igarotako lurralde aien euskal izenak eta zergaitik eta zer esan nai daben; non aurkitzen diran gure asaba zaarren bizi-leku izandako artzuluak, bertan dagolako euskotarron edestirik ziurrena; mendi inguru ortako errietan diran orugallu ta euren zergaitik; erri orreen kondaira ta oiturak eta abar, itz baten, gure lurraldearen ezaugarri guztiak, zenbat eta geiago ezagutu geure Aberria, ainbat maiteago izaten dogulako bera.

Esan doguna lortuteko baiña, Batzordeak ipiñi bear ditu bidean bazkideak, batez bere gaztedia, adierazi ta eralduaz egokien izango litzakezan txangoak eta eginkizunak, dan-danak jaramongo ezpada be, ainbatek ontzat artuko leukezalako. Ortarako, baiña, ba-dagoz bear dan bestean gertuta, euskotuta mendigoizale Batzordeak?, ez danak, bearbada ikasiena izan ezik guztiak eta ausartuenak be beti, nai-ta asmu onekoak izan euren eginkizun guztietan. Eta derrigor bide ortatik iraun bearko da kiroldar kementsuenak, garbi ta zindoenak izatea nai badogu eusko mendigoizaleak.

* * *

Jakin dogunez, laster ikusiko ei-dogu Galdakano'n gazteleraz «Complejo Polideportivo» izenaz ezagutzen dan bat. Guk, baiña, erderazko izen apain ori baiño euskerazko Jolaseta edo Kiroltokieta esan naiago dogu, gure izkuntzan orixe esan nai dabelako.

Iragarri daben egitamuetan (planoetan) ikusten dan erakoa izaten bada asiko dan Jolaseta, eztago esan bearrik, apaiña ta ederra izango dala; igiretegi



Galdakano'ko mendigoizaleak Abellanedan

bi, pelota-toki, ostikoketa landa oñezko lasterketa ingurutegi ta guzti ta abar, ain ospetsua dan Andra Mari'en txadon erromanikua'ren aldamenean aurkitzen dan zelaidian. Orretarako ia amaika milloa lauerleko txinditza egin dau, leenengotan, erriko Udalak, gero bearbada geiago bearko badau-be.

Gure ustez, bearrekoa zan errian orretariko kirol-toki bat, gaztedia oitu daiten kirola egiten da ez «besteak» egiten dabena ikusten bakarrik, kirola dalako beste ezer baiño egokiago gazteen soiña sendotuteko.

ALTUNA'TAR JOSU

KONTU KONTARI

NEGUA

Negu baltz ta bildurgarri
egun labur, gau luze,
mendi-goyak zuri yantziz
edurrez bete-bete.

Txoriak muturik dagoz,
zugaztiak billozik,
besoak gora yasota,
zerbait lortu gurarik.

Errekak orrura baten
itxasora arinka,
euren atseden tokira,
alkarreri bultzaka.

Zeru-goyak laiño baltzez
bildurgarri agertzen,
euri, txingor ta edurra
gau ta egun yaurtitzen.

Eguzkia goyan nonbait
bildurrez eskutauta,
laiño artetik ixuti
noizipeiñ begiraka.

Mosu gorri agertuaz
bere suzko azkonez,
laiño baltz ibiltariak
beti zulatu nayez.

Zarrak sutondoan eta
gazteak buru makur,
neguko aize otzagaz
nor ez ete da bildur?

Alperrak oe beroan
nagiak kendu ezin,
zoliak diranak bere
sarritan dabiltz bardin.

Negu baltz eta illuna
eriotzan irudi
bere barruan daroa
udabarri pozgarri.

GABIREL

BIDEGANE'KO KEPA

On Pedro osagille zarra joaten zan Bidegane'ra arratsalde batzuetan.

—*Oni mutill oni ikasteak emon bear zeunzkiyuez, buru onekua da-ta.*

Eta Bidegane'ko etxeandereak:

—*Guk al dogunagaz lagunduko dautsagu.*

Eta On Pedro'k:

—*Gure dok ikasten joatea?*

—*Bai.*

Eta joan zan ikasten uriburura Bidegane'ko Kepa.

Ikasteak egin be bai. Gauza asko ikasi ei-dau Kepa'k uriburuan.

Mutil gaztea orduan Kepa. Mutil azia orain.

Eta kanpoetara doiala ta betiko itxi dausku erria.

Betiko.

ÑAPUR-ZARRA

BARREGAIAK

—Gure etxean anai bi gozak, bata oso zurra eta bestea oso leloa.

—Eta non jagok ire anai zurra?

* * *

—Nire txakurra guztiz zurra dok. Ogerleko bat goizean emon eta... Izparringia ekarrik!

—Eta ekarri egiten jok?

—Bai zera, ogerlekoagaz lukainkea erosten jok.

* * *

Egalariak: **I, egazkin onen eragillea suak artu jok eta nik ez jaukat jaustekorik. Zer egin najeikek?**

Zelaitik: **Jatsi adi ona bera eta emen emongo dauat jausteko bat.**

* * *

—Nok egin jok argazki itxusi au?

—Ori ez dok argazkia, mutil. Ori espillua dok.

* * *

—Seme, ire ikasteak amaitzerakoan zer izango az?

—Zarra, aita; guztiz zarra.

IZENAK ALDATZEN

Izadiak eta gizon jakintsuak gauzak aldatzen dabezanean, guk ez daukagu zer esanik. Baiña edozeiñek aldaketa ori egiten ba'dau, guk gauzak argiratu ta len izan diran lez utziten alegindu bear gara...

Edozeiñek daki Enkart-Erri edo Encartación aldean ainbat izen aldatuak izan dirala. Nok egiñak eta zergaitik egin ziran aldaketa orrek? Ziur nago, lan ori ez dabela gizon jakitunak egin. Baiña onek edo arek egiña... or dagoz LA BARRIETA, LA CUADRA, CARIGA, EL REGATO, ta abar... Bai ta bere euskaldun errietan ba'dira Lauros, Olabarrietas, Arriagas, Mendietas, Meagas, Sarasketas, Motas, eta olako asko ta asko...

Eta ta aga euskeraz «atzizkiak dira»; onek esan gura dau izen edo berezko-itzen atzean erabilli bear diran izkera batzuk dirala. Biak eta ta aga'gaz gauza batzuk ugari agertzen diran lekueri, izentatzen jakie. Au da: ARRIAGA (ez Arriagas) arri ugari agertzen diran lekuari izentatzen jakie. MADARIAGA, Madari-lekuak; ZUGATZAGA, Zugatz-lekuak; MENDIETA, Mendi-lekuak...

Ikusten dan lez, eta ta aga, euskera dira. Baiña etas ta agas euskerean ez dira ezagutzen, euskerean zerbait sakondu dabenen artean beintzat.

La Gaceta del Norte'k, Bilbo'ko izparringiak, ille onetako 7'gnean, 5'gn. orrialdean, idatzi ebazan barriak, emen diñoguna sendotzen dau.

Aranguren erri aldean, berebil batek zama-burdi edo camioi bat jo ei eban eta berebillean joiazan adizkide bi zaurituak izan zirala irakurri genduan. Bat Julián PETROLADA AGUIRRE eta bestea Ignacio AYO DE LA CORTE zirala idatzi zan. Zergaitik PETROLADA *eta DE LA CORTE, PETRALANDA ta BELAKORTU diranean? Izparringiak eta agintariak, gure izenak orretara idazten ba-dabez, jakiña erriak «olakoak» ontzat artu ta egizkoari alde egiten dautse. Zergaitik, idatzi baiño len, eztakienak, dakienari ez dautsie itauntzen? Danon artetik borondate on apurtxo bat ipintzen ba'dogu... gauza onek ez dira jazoko.*

Ba-zan ASUA'n sendi bat, SIERRA abizenagaz ezaguna. Egun batean, sendi atako Jaun-buruari itaun au egin neuntson: Zu Markiña aldekoa zarala entzun dot eta zuk darabilzun euskerea entzun ondoren, alde atakoa zarala ezin ukatu, aiñ euskera garbia mintzatzen dozu ta... Baiña, ba-dakizu zure SIERRA abizen ori nundik etorri jatzun? Ez dot jakingo ba? Erantzun eustan. SIERRA au, gure erriko idazkari jakintsu *batek ipiñia dogu. Gure aititariko bat jaio zanean, bere aita auzetxe edo juzgadora joan zan ume aren izena emoten eta... ZEARRA* (Siarra *euskeraz itzebakituta) esan ebanian, idazlari* jakintsu *arek esango eban bere barrurako...* «Estos vascos son tan brutos que no saben ni hablar y llaman *Siarra* a Sierra». *Zearra zan gure abizena ta ara or nundik nora gure Zearra abizena aldatu zan Sierra au gaitik. Orregaitik, idazlari jakintsu batek, txarto egin eban lan bategaitik... ni Sierra egin nabe, Zearra izan bearrean...*

Beste gertaera au, Mundaka'n jazo zan. KRUZALEGI sendi bat bizi zan erritxo polit atan. Senarra itxas-gizona, ontzi-buru, zan. Beti, Bilborantz etorrenean, bi edo iru egun aurretik eta urrutidatz edo telegrama baten bitartez, eurek Bilbora elduko ziran egun ta ordua esaten izan dautso bere emazte Karmen'eri. Orrela, emaztea, kaian egoten zan bere senarraren zai. Biok, alkarregaz, Mundakara euren etxera joaten ziran. Baiña, egun batean, emaztea ezan kaian egon eta senarra bakarrik joan zan etxera. Etxeratu zanean, bere emazteak diñotso: Zelan ez dozu gaur urrutidatzik bialdu? Bialdu neban, erantzun eutson senarrak. Eztabaida bat gertu zan eta Bermeo'ra joateko erabakia artu eben. Bermeo'n zan urrutidazkindaria edo telegrafista ta... Bermeo'ra eldu ta itaundu ebenian zer jazo ete zan telegrama agaz, an egon zan gizonak (ezan euskalduna) erantzun eutsoen: Emen daukat urrutidatz bat, atzo Mundaka'ra bialdu ta atzera etorri zana, ez ebelako Mundaka'n iñork be andra au ezagutzen. Ba dakizue irakurle maiteok, ze izen ipiñi eban gizon arek urrutidatz aren gaiñean? Karmen Kruzalegi ipiñi bearrean, Carmen Cruz Alegre ipiñi eban.

Eta, olakoak zenbat eta zenbat jazoten dira gure erri maite ta zori-gaiztoko onetan.

Noiz arte olakoak? Jaingoikoak bakarrik daki, baiña guk daukagu gure eskuetan erantzun ori. Olako gauzak jazoten diranean, argia eruan eta gauzak argitu egin bear doguz. Orregaitik iñogaz asarratu bearrik ez da. Gauzak argitu, ez dakienari irakatsi maitetasunagaz eta gure euskera indartu egin bear dogu danon artean.

Orretara ekiten ba'dautsagu, Lauros, Cariga, Arriagas eta abar... amaituko dira ta kezka onen amaia laster ikusiko dogu.

KEPA

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik:

Askotan oso zailla gertatzen yat erriko barrien yakiñean izatea. Au izan zan neretzako buruauste aundietako iturria, asikeran batez bere. Barriemoille on bat izateko, yazoten dan guztiaren berri zeatzak yakitea leenengo baldintza da. Eta aun zan enetzat ezin askatu negikean korapilloa, gertaera geienak ni ez nintzan lekuan yazoten bait-ziran. Azkenean aspertuta, astean bein gitxienez, Agiñalde'tik kalera yatxiten erabagi neban, errian gertatzen zana yakiteko, gure irakurleen onerako.

Olan, andrazkoen arteko esamesak yakiteko, Koipetxu'ren denda tokirik egokiena zala ikasi neban, eta ostantzean gizonenak entzuteko, erriko bizartegia benetako yakintza-iturria nebala.

Gure Agobero aundia, erriko bizargiña, nik ezaguturiko gizonik arrigarrienetako bat da. Gure erria ez litzake bardin izango, ikastola nagusia bezelakoa dan bere bizartegian, gure Agobero ospetsuak bere yakintzaren txinpartakaz guztien adimenak argitu ta goratu ez ba'litu. Baiñan asi gaitezan leendabizitik.

Gure erriko enparantzan Txomin'en ardandegia eleizaren buruz-buru yagiten zan. Tokia ona zan baiñan ez eukan ardandegi on batek bear dauen erakarpena ta adiskide-kutsua, aundiegia zalako nunbait. Benetako ardandegia izateko, lekua txiki ta atsegiña izan bear da, olan bakoitzaren iritzi, yakintza ta aldartetzaz beste guztiak kide egiteko. Gaurko egunean sarri entzuten da, gizarte-auziak garbitzeko alkarrizketa baiño gauza obeagorik ez dala. Zelan lortu beraz alkarrekiko ulermena, bata enparauengandik urrunduta ba'dago ta bere iritzi miñena oiuka ta kiñuka yaulkitzen bearturik ba'da?

Egia esateko, Txomiñ'eri irabazpidea ez yoakion oso txarto, baiñan ez berak gura eban baizen ondo be. Bere ardandegia, otza, illuna, ta erakargabea gertatzen zan. Gauzak luzaro samar olan iraun eben, baiñan egun zoriontsu batean itxasgizon izandako batekin topatu zan. Gizon argi onek laister ikusi eban ardandegiko utsa, ta berari esker, gauzak beste itxura bat artu eben.

Agobero, Atxandi'ko semea zan. Umetandik itxasoan ia ogetamar urte yardun ondoren nekatu zan, eta sorterrira itzuli zan ogibide nasaiago baten billa, bai ta sendi bat zertuteko asmoz be. Itxasoa laga ebanerako, amaika lan egiten ba-ekiazan eta bakoitzean irakasle ez ba'zan bere, aurrera urteteko eran antolatzen zan. Eta olan berrogei urte ozta-ozta beteta, gizon argi au gure barrutian lan baten billa asi zan. Aspaldi batez zeatz guztiak ondo aztertu ta gero, gure errian bizartegi bat sortzea erabagi eban. Bizargin-bizargiña ez zan iñoiz izan, alabaiñan itxasoan ebillenean, sarri bere adiskideeri ulea moztu ta bizarra kendu egin eutsen, eta alegin oneitan bizirik urten ba'zan, zerk eragozten eban legorrean beste ainbeste egitea?

Errian ba-genduan bizargin bat, baiñan txit zaarra, astidun eta ganorabakoa zanez, gure erritar geienak Atxandi'ko bizartegietara yoateko oitura artu izan eben, eta arazo aun Agobero argiak berealakoan oartu eban, bai eta erabagi zuzena artu bere. Gure erriak merezi eban maisua izango eban, bai orixe...! Baiñan emen auzi bat aurkeztu yakon, ots, nun idoro bizartegi txukun bat sortzeko berak bear eban tokia? Bein batean, eta gure erriko bazter guztiak alperrik arakatu ebazala, Atxandi'ra biurtu baiño leen, aspertuta Txomiñ'en ardandegian sartu zan, eta edontzi bete ardao eskatzen ebala, tokiaren aunditasunak eta batez bere aren zabalgoak arrituta itzi eben. Naiko zan benetan bere bizartegirako, areto aren erdia baiño gitxiago, ta orduan, gure gizon argiari zegokion burutapen zuurra etorkiola, Txomiñ'eri esan eutson:

—Neuk iñoiz edandako ardaorik onenetariko bat saltzen dozu.

—Bai ba... alegiñak egiten doguz. Atsegingarria da izan bere, ardau on bat ederresten dakien zeu lako batekin topo egitea.

—Bai baiñan... —eta emen Agobero'ren begiak neurrigabeko naigabez estali ziran, asperen sakon bat yaulkiaz— benetako tamala da...

—Tamala zer...?

—Ez daukazu leku makala ardandegi h terako arraioa...!, baiñan neure iritziz, au diegia... aundiegia...

Eta itz oneik iñoazala, Agobero'ren begia gero ta goibelago biurtzen ziran ainbe edertasun alperrik galduta ikustean.

Yarraiki, Txomiñ'eri berak lurbira oso ikusitako ardandegi onenetariko barriak em ten asi yakozan. Egia esateko, Agobero'k h rralde asko ikusiak zituan eta ba-zekian ard degi bikaiñak zelangoak diran, eta itz egite doai bereizia ebanez, mintzo gartsuaz ard gizonari toki txiki baten aldeak azaldu eut zan. Txomin gaixoak abo-zabalik mintzal gain-gaiñetiko areri lilluratuta bezela entzut eutson. Agobero'ren itzaldia amaitu bai leen, Txomiñ'ek Yaungoikoari eskerrak e eskerrak emoten eutsozan ondapenean yaust itzi ez ebalako ta garaiz igarle aundi bezelak zan gizon ua biali egin eutsolako.

—Bai lagun bai, gauzak ondo egin ba'dituzu, gela au estutu bear da. Begira; da ezer urbiltasuna bezelakorik, alkarrizke uste ona ta adiskidetasuna sortzeko. Orain da kazun leku zabal ontan, gizasemeek arrotz ba'liran alkar begiratzen dabe, ta erriko meen arteko artu-emonak sendotu bearrea eten egiten dozuz. Eta begira, gauza erantzukizun aundiko arazoa da zuretzat. Z lako gizon bateri dagokion giza-urreratze ezin dau bear dan lez bete... ta gaiñera zu sakela beti diruaren txera goxoa artzeko i kan, eta zuretzako diru zitala garrantzi gizki ba'da bere, lagun-urkoaren zoriona gogo izan bear dozu. Ez gizona, orain arte bezela rraitzea ez da legezkoa, olan ez da erri benetako giroa sortuko...

Au esanik, Agobero'ren aurpegia ezin es alako goibeltasunaz laiñotu zan, eta bu etsipenaz beterik astintzen ebalarik, ardoa laztan epela billatu eban barruko atsekab kentzeko noski. Ordurako baiñan, Txom bere ardandegiko iru laurdenak emoteko g turik egoan.

—Egi aundia diñozu lagun —damu itxu erantzun eutson Txomiñ'ek— baiñan ard degia txikitu ezkero, zer egingo dot beste derdiagaz?

—Beti idoroko dozu maisterren bat de bat erabiltzeko.

—Ez uste ain erraz izango danik.

—Orduan olan ba'litz, nik artuko neu zu. Yakiña, merke izatekotan. Gaiari ondo giratu ta gero, neure ustez ondoen gertatu litzaigukena, bizartegi bat izango litzake, gira... bizartegirakoan, bide batez gizo zure ardoa txastatuko dabe, ta bizartegia terik ba'lego ainbat obe zuretzat. Ba-dakizu norberaren txanda atsegiñago itxaroten ardao on bat edatekotan. Alderantziz, gizo ez dira sarri bizartegira etorten alperkeria alperkeriz, baiñan bein ardandegiko atea zargin on bat izanik, gauzak beste itxura da kuste, ta ori nere onerako litzaidake.


Txomiñ'ek, itxas-gizonaren itz adoretsu abo-zabalik entzuten autsozan. Ez eban g zak zeatzago aztertu bearrik izan, eta a laister lagun barriek, txurrut luze baten bi euren arteko itunea burutu eben.

Zenbait egunen buruan, ol batzuekaz t bat eraiki ta gela erdibitu eben. Yarra Agobero'k bizargintzarako bearrezkoak d aulkiak, ispillu, ta tresnak ekarri ebazan Yon Deunaren aurregun eguzkitsu bat bere bizartegi dotorea leenengoz iriki e Ate-gaiñean, margo zuri, orlegi ta gorriz ira rri leikean: «ITXASGIZONAREN BIZA TEGIA».

Eta gauzak Agobero'k iragarritako be gertatu ziran. Gaur egun ezpairik gabe leike, erriko gizarte-bizitza gure lagune egiten dala. Txomiñ'en aurpegi mazala bildu yako, ta bere biotzean sortutako zor toki naikorik izan ezik, gorputzean zear yako, ta loditasun utsaz beste yantzi ba egiten agindu bear izan dau.

AGIÑALDE'KO TXEPET

(Jarraitzeko)




KIROLAK

Gazteen arteko ostikoketa

ATLETI'RAKO MUTIL ASKO DAUKAZ MUNGIA'K

★ Diño Sertutxa zuzendari barriak



MUNGIA'KO GAZTEEN TALDEA

Gotik eta ezkerretik: «*Txapela*», *Goikoetxea, Imaz, Piji, Boira, Ganboa, Goiri, Faustino, Sevilla, Gainza, Legarreta, Imanol, Alonso, ta Gangoiti.*

Mungia'n orain dala urte bi sortu zan kirolarien alkarte bat, emen batu zirean pelotazalekoak, txirridulari taldea, ta sortu barri zan ostikolari taldea, sortu barri diñot baiña ez da ain barria, orain direla 20 urte Mungia'n sortu zan lenengo ostikolari taldea, bertatik urten eben, Sertutxa anaiak, Angel lenengoan Mungi'tik Atleti'ra igon eban, baiña an ez eban izan zori onik, urrengo Osasunan jokatu eban ta geroago Sabadell'en, emen ainbat denporan jokatu dau. Igezko urtean egin eutson agur ostikoketari, baiña bere gogo guztia oraindiño ostikolarien artean dago. Bere anaia Joxe, Coruña'n dago, ta igezko urtean bein ta birritan baiño geiagotan erakutsi eban Coruña taldeko onenetarikoa zala, aspaldian auzituta egoala ez dogu ikusten izan, baiña emendik esan gura dautsat irakurleen izenean, arin biurtu dedilla bere ostikolari taldera. Aurrera Joxe!

Orain Sertutxa tar Angel'en eretxi batzuk agertu gura neukez, beragaz alkar-izketa bat izan dotan eskero:

—Lenengo aldiz ze urtetan jokatu zenduan?

—49-50'ko jokoaldian, lenego aldiz jokatu neban Mungi'ko taldeagaz.

—Emongo daustazuz zugaz jokatzen ebenen izenak?

—Bilbao, larrauritarra izan zan atezain, gero Juan Bilbao, Iñaki ta abar. Geroago, jokatu eben, nire anai Joxe ta Pikatxon'ek beste askoren artean.

—Zelan ikusten dozu zure taldea?

—Oso ondo, ba-dago emen indarra ta kemena apurbaterako, gazte asko dagoz ta ondo jokatzen dakianak geienak.

—Orduan aurtegoatzaz zer esango dozu?

—Nire ustez, oraindiño iru lenengoen artean sartzeko modua dauke, zintzo ta gogotsu jokatzen ba'dabe beintzat, orain arte lez.

—Talde nagusia zer?

—Talde nagusiaren indarra asko gustatzen jat, ez dira inoiz bere baloiegaz gauza politek egiten geratzen.

—Aspaldian, entzuten dogu, ez daukala tenikarik, indarra baiño, zer diozu zuk onetaz?

—Bai ori alan da baiña, tenika asko daukonari, beti irabazten dautso, indarragaz gogor jokatzen dauanak.

—Irabaziko ete daue ba aurtengoa?

—Nik uste dot baietz. Au esakeran bere emazteak lagunduten dautso esanaz: «Bai aurten ziur irebaziko dau». Alan izan dedilla.

—Atletia zelan ikusten duzu?

—Irabaztea ezdau errez izango baiña iru lenegoetan geratuko da.

Angel'ek aspaldiko urteetan esan dodan lez, Sabadell'en jokatzen izan da, ta talde a asko maite dau, baiña bere biotza Atleti'n dagola ikusten da. Berak diño «Orain bere Atleti'ko lengo zarren taldeagaz jokatzen dodanean, Bilbo'ko koloreak ilusiño aundia egiten dauste».

Il onen 27'an izango da Gardeazabal jaunaren omenaldian (G. B.)

Au be beste euskelzale bat izan genduan, Mungi'tar askok ez dau gogoratuko baiña, emen Koldo lendakariak esan daustan lez, lenengo jokoaldia Mungi'an zuzendu eban. Omenaldi orretan Bilbo'ko «viejas glorias» eko taldeak jokatuko dau, Real Madril'eko zarren aurka, ikustekoa izango da berau.

—Mungia'tzaz zer esanik badaukazu?

—Bai Mungi'tzaz jente gitxik lagunduten dabela club'en gora-beratan esan bear dot. Tamala da beti 5 gizon bakarrik lanean ikustea. AGUR'eko irakurleeri esan egiozue lagundu deiela pizka bat Mungia aurrera joan dedin, ta bazkide geiago bear dogula bere bai.

Mungitarrak, badakigu zer gura daben gure lagun Angel'ek, laguntza pizka bat.

—Pozik egongo zara zure taldeagaz ezta?

—Bai nik asko maite dodaz, ta eurak bere bai neu, ta batez bere eurak asko maite nabela konturatzen naz, onek poz aundia amoten daust.

—Ba-dagola uste dozu emen, zuretaldean, bierko Atleti'rako gizonik?

—Baita bat baiño geiago be, lenengoak emon dau pausu bat, au da Gainza'k, baiña onen atzetik bere, beste iru edo lau onak datoz.

—Zer gustako leuskitzu zuri, Mungia'ko taldea, non ikustea?

—Niretzat pozik aundiena Mungia 3'gn dibisiñoan ikustea izango litzake, neu zaindari naizala.

Ea, alan ba'da, danok poztuko gara! Zoriona opa dautsut AGUR'en izenean, ta baita neuk be lagun lez zure naiak betetu daitezala, agur ta zeuk nai dozun arte.


TALDE JATORRA

Mungia'ko gazte talde onetzaz ez dakit geiago zer esanik badago, pizka bat geiago azaldu leike, aspaldiko gora berak, esate baterako S. D.'gaz izan diran gora bera batzuk aitatu gura neukez. Urte bete igaro zanean, alkartea egin zanetik, txirrindulari taldea banandu egin zala esan eusten, ta begaraz pelotakoak bere bai, zer jazo dan ez dakigu baiña gauza guztiak argi ez dagozala bai. Asko izango ete litzake esatea bakoitzak bere aldetik jokatu gura izan dabela? eztakit baiña...

Au jazo ondoren aldakuntza bat ikusi genduan gaztean taldeko zaindari zan German'egaz, onek naiko zurru-murrua atara eban jentearen artean, baiña iñork ez zakian lez orren sustrairik, or geratu zan dana. Aldakuntza au Mungi'ko taldearentzat ongarri izan eta da. Alan izan ba'da aurrera, baiña neure eretxia ez da ori.

TALDEKO BATEN ERETXIAK

Mungi taldeko atezaiña dan Xabier'egaz bere, izan dogu alkar izketatxo bat, Mungia'n jaioa da, jatorra ta zuzena, bera, Mungia'n aurkitzeko aukerarik izan ez



Gure Xabier gaztea, «Txapela» deritxoena, atezain bizkorra. Kontuz Iribar!

neban lez urrutizkin bidez erantzun dautse nire galdereri. Onek dira ba bere erantzunak:

—Zelan ikusten dozu Mungia taldekoa zaran ezkero?

—Nik uste dot indar aundia daukala, ta gogotsu agertzen garala danok.

—Asi zarenetik ona, uste dozu aurreratu zariala zerbait?

—Asierarik ona, ain bat aurreratu dogula uste dot talde lez, baiña geiago egin bear genduan.

—Lenago, jokatu zenduan beste talderean betagaz?

—Ez, Mungia'ko taldea sortu zanean asi nintzan jokatzen, ta orain emen nago gazteen atezain.

Nik uste dot ostikoketea beraz bearrezkoa dala, baiña gauza bat jazoten da, «deporte de masas» deritxona biurtzen dala, ta orduan onek jende askori, beste arazo batzutan pentzatea kentzen dautso.

—Zuk uste dozu au olan dala?

—Ez dot uste nik ori. Zuk diñozuna ez dot ikusten orren bestean. Zarata asko egiten dabenak dagoz batzuk, ta besterik ez dabenak pentzatzen, baiña danak ez dira bardiñak.

—Oba da olan zuk diñozun moduan izango ba'litza, baiña uste dot bestea be argi ikusten dala.

Xabier'eri eskerrak emonaz, banoa amaitzera, Mungi'ko taldea, segi daizula jokoan, zeuen artean euskeraz mintzatzen, orain arte ikusi dogun lez, ta jarrai aurrera beti euskaldun zintzo lez.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER'EK



Emen, Sertutxa bere onenean. Beste askok ba'leukee onen sua!

ARRANTZALEAK

Emen, Donosti'n, nere begiak ikusi zituanak eta nere belarriak entzun zituanak orain denpora gutxi... esan gabe, ezin det lorik artu ere. Entzun beraz irakurle:

Igazko urtean, dakigunez «veda» dalako ori aintzat artu zuten emengo arrantzale ta Madrid'ko ortarako dauden agintariak «veda» ori izan zan, alegia, bokartarik ez arrapatzea Epaillaren lenengo egunerarte. Guziok dakigu, ze nolako arraiketak izan ziran: ezer eza ontzi askorentzat, naiz ta azken aldian arrapatu poliki.

Nere ustez, astakeri aundiagorik ez dago olako neurketak aintzat atzean. Zergatik? Ara ba: Bokartak arrapatzen; orren berandu astea, gero, berealan eltzen dalako atunetarako kostera. Bien bitarteko une ori motza dalako.

Bokarta, urtero ikusten degunez, errege-egunetarako azaltzen da ur auetan. Gure uretan badago ta «veda» badako, ezin noski arrapatu. Bien bitartean, zer egiten du bokartak? Ortako dauka buztana ta berak eraginda aurrera ta aurrera joanik prantziko uretara sartu. Zergatik orduan ez da arrapatzen gure uretan dagon bitartean? Or dago koska! Ontziak ez diralako kai basterretan lotuta egoteko, itxasora irtetzeko baizik, ta nai ana arrapatu.

Aurten ostera, «veda» ori amabost egun moztu dute. Nik ordea, nere zentzun guztiz esan nai det: Alperrik galtzen dirala berrogei egun, bien bitartean bokarta prantziko uretara sartzen dalako, emen, une orretan, arrapatu barik.

Ortan zeunden gure arrantzaleak errege-egun geroago. Itxasoan asteko amorru beteaz ta ekarri bokarta. Ontziak, iru illabetean amarratuta egon ondoren, arrazoiren paltik ez zuten gero itxasora irten da bokarta arrapatzeko «veda»'n egon ordea... eta beda ori aintzakotzat artu bear. Ala ere, Otsaillaren aurren egunetan irten ziran ontziak arrantza beda orren aurka eta ekarri Donosti'ko kaira millaka kilo. Une artan sortu zan izkanbilla... bildurgarria izan zan. Nik ikusi ez banu ez nun sinistuko ere. Legorrean zeunden eroslari, andre saltzaille ta ortako dauden ontzi bakoitzeko «maistren» liskarrak entzunik, sortu zan zarata ikaragarria izan zan. Zer egin? Zer gertatuko zan? Kai guzian lekurik etzegon arraiak ateratzeko, ta beda zala ta ezin leikela arrairik saldu, legearen kontra zaudela-ta...!! Ura iskanbilla, jaunak!

Erosleak joan ziran itxasoko agintariegana ta onek adierazi zuten, alegia, arraia arrapatu zuten ezkero, gaurkoz saldu zitezela, bañon, urrengo egunean etziotela utziko saltzen.

Ori da emen gertatu zana. Ontzi bakoitzak amarna milla kilo saldu zuten, 195 milla pesetako etxada poltzikoan gordetzeko. Ez alda ekartzea obe, eta ez ontziak amarratuta eduki? Bai noski.

Urrengo egunean Otsaillak bost (uste det) joan ziran berriro arrantzara. Ez ordea geiago bokartarik ikusi... Nora joan zan? Nora joango zan: Prantziko uretara. Orra orain derriorrezko «veda», ur oietara sartzerik ez daukatelako.

Xabier Lahoz patroi yayoakin egondu nitzan izketan. Onen aserrea, etzan txantxetakoa. Zionez, orain arrapatu bear zala lenengo bokartaren sarreratzea, gero bokarta ori izkutatu egiten dalako. Gero, beste sarreraldia izaten duala zion berak beste bokarta aundiagoa, ta au jorraillean. Orregatik, gure uretan dagon bitartean, arrapatu bear zala, eta ez dalako «veda» nazkagarri orreri begira egon...

Xabier Lahoz'ek zionez, komizio batek artzen dituala erabakiak emen. Bañon, komizio orrek EZ DIOTELA DEITU ERE EGIN AURTEN ZE NOLAKO ERABAKIAK ARTZE. KO. Komizio oietako gizonak ez dirala iñor patroi guzieri adierazi gabe.

Batu ziran Donosti'ko Kofradi edo arrantzalen etxean, egun ortan eldu ziran ontzi guzietako patroiak. An gertatu zan bulla... etzan goxoa... Guziak deadarka ta zarata ugari.

Nola leikez orduan aintzakotzat artu, orren garrantzi aundiko erabakiak? Nik emen ez dakit nola leiken. Dakitena da, arraiak kaira ekarri bear dirala, eta ez arrai oiek igeri ebilli itxasoan lasai ta patxaran. Ortako daude ta egiten dira ontziak, arraia arrapatzeko. Garbi al dago?

Xabier Lahoz'ek egun gogogarri ortan amaika milla kilo bokarta ekarri zitun. Jose Luis Lahoz'ek beste orrenbeste. Bat «Antonio Lahoz» ontzian eta bestea «Kintana» ontziko patroiak. Berdin beste dozenaka ontzik. Etzitzaioten txarki etorri dirutza ori. Legorreko komizioko jaun oiek beren jornalak izango dituzte, arrantzaleak ez dute ori. Arrantzaleak, beren jornalak, arraia ekarrita dauka eta ez geldirik kaian egonda. Garbi ote dago au?

Urrengo egunean ontzi gutxi eldu ziran Donosti'ko kaiara. Bokartarik ez zuten ekarri. Bai ordea txardiña. Naiz ta gutxi. Xabier'ek 80 kaja zitun 400 pesetan salduak. Berak zionez: «Bokarta ez degu ikusi gaur. Txardiña prantziko ur inguruan zegon. Naiz ta 30 amar brazan arrapatu, estu-estuan ebilli gera argi gabe ta prantziko guarden bildurrez. Ez dakit, aurten nola ebilliko geran. Sei milletatik kanpora arrantzan egiteko... naiko zalapart sortuko da».

Datorren urterako, diotenez, kenduko dute «veda» ori. Bi urte auetako erabaki orrek, ez det uste, onik egin dioten arrantzalei. Ikusiko degu beraz, ze nolako kostera izaten duten.

Gure nairik beroenak dira, arrapatzeko ugari, ea orduan merkatzen dan zerbait. Zenbat eta arrai geiago kaian agertu, ordun ta merkeago salduko dutelakoan nago ni. Arrantzaleak onenbestean saldu arren, geroko prezio goitzeak ikusten ditugu. Jakin bear dezute arrantzaliok, guk ere bai ditugula zer esanak, bokarta ori ez dala merkatzen, erosleak gero geiegi eskatzen dutelako. Askoren poltzikoak ez daude gaur egunean bokartak orrenbeste ordaintzeko. Angulak ote dira-ba?

Bukatu dezadan. Konponketak egin bear dira. Konponketak egiteko, ortako dauden gizonak alkartu ta guzien naia ongi bete! Ekarri arraia ta jan dezagun merke!

E. OZKIN

LANGILLEAK

C. M. T.'en XVII garren batzar-nagusia

Ginebra'n, Leman aintziraren ondoan CMT (Confederación Mundial de Trabajo) batzar nagusian bildu zan igazko Loraillak 28-30-29 eta 31'gnean.

Bere lendakari dan Maurice Bouladoux'ek asiera eman zionean kontinente guzietatik etorriak ziran 300 ordezkari. Auek, aueixengatik babesturik zeuden: 66 aberri, 11 federazio eta 80 langille erakuntz.

Eskariari so egiñaz ikusle berezi bezela ere Suiza'ko agintaritzaren ordezkariak, ONU'renak, OIT'enak eta baita ere Laterri askotako enbajadore edo laguntzailleak.

Gobiernuetatik kanpo bizi diran erakuntzen ordezkariak ere ikusle izan ziran, esatebaterako: Comisión International de Juristas, WAY erakuntza, Internazional JOC eta MMTC. Berexitu dezagun CIOSL (Confederación Internacional Obrera de Sindicatos Libres) sozialista bera ere an zala bere ordezkariekin, ta baita ere aberri askoetako ordezkari eta adiskide. An ziran: Bretaña Aundia, Irlanda, Ipar Amerika, Etiopia, Ghana, Japón, Tailandia, Pakistan, India, Malasia, Singapur, Ego-Korea, e. a.

Onetaz, egizko demokrazian babesturik ibili dala batzar au, bereziki agertu da. Eta onetaz ere, bost kontinenteko sindikalistek pozik egon ditezke. Gaur egun munduan zear ao-zabalez demokraziatzaz eta gizakien eskubideetzaz ainbeste itz egiten danean, ta gero ikusten ditugunean Batzar demokratiko zenbaitzuk kontrolaturik eta dirijismoaren menpean dabiltzala, poztu egin zituan CMT'eko sindikalistak Batzar Nagusi onetan demokrazia jator ibili zalako.

Eta ori egiten ain errexa ez zalarik! Batzar oni bai-zegokion, ain zuzen, CMT'eko arauak ludian zabaltzea, jeografi maillan bezela ogibide mailletan ere. Baiñan Batzarrak ongi bete zuan bere eginkizun au.

CMT'eko lendakaria OIT (Organ. Intern. de Trabajo) ren alde irten zan, batzarra irikitzen zuan itzaldian. Eta laguntza eskeñi zion, eta gaitzetsi OIT'eri egiten zaizkion zenbait maxiaketak. «1969'gko. sindikalistak esan zuan: ezin dezakegu lo artu egin danari begira, gauzik ederrena egin ba'da ere». «Auxe dugu bearrekoena: beldurrik gabe etorkizunean begiak ipintzea ea borondate oneko gizon guztiekin, soluzioak arkitzen dizkiogun gaur eziñezkoak iduritzen zaizkiguten arazo batzuei; konserbadore eta erreakzionario askok ere eziñezko au gizentzen, euren barruan sindikalistoi gorroto digutenak, naiz eta gureganako errespeto gezurrezkoaz azaldu».

Ekonomia ere gizonaren serbitzurako izateko puntu batzuek ipiñi zituan, bere itzaldian. Baiñan onetaz urrengo idazki batean mintzatuko gaituzute. Guztiz onurakorra bai-deritzaigu sindikalismoatzaz itzegitea. Gaurkoz, onekin bukatzen: Langilleak jasan bearrean diran injustizia zuzendu nairik jokabide bi azaltzen dira: iñoiz menperatu eta langille izan ez diran edo laboratorioko sozial-teorikoena batetik; eta egizko langilleak eta menderatuak darabilzkien eralguntzak: sindikatoak bestetik.

Zailla al da aukeratzen?

OLAZABAL'DAR XABIER

EUSKALERRITIK MUNDURA TA ETXERA BEGIRA

Korteetako maiko batek, larunbat-arratsaldeetan bakarrik futbola jokatzea eskatu dau.

Zergaitik?

—Sendi bizitza indartzeko.

—Aste-azkena onuragarria izan daiten.

—Lan eta jolas-orduak beste laterrietakoak izan daitezen.

Agintaritzeak ezetz erantzun dautso.

Zergaitik?

—Jolasen eratzailleak nai dabelako.

—Diru-aldetik igandea obea dalako.

—Larunbatez langille asko joan ezin dalako.

—Futbol-zaletasuna, aundia, indartzera eta geitzera bearturik gagozelako.

* * *

Commonwealth'eko batzarkideak endakeria, errazakeria, ez dabe onartzen. Ori erabagi dabe Singapur'eko batzarrean.

Onexek dira artu dabezen bost erabagiak:

—Bakea, aurrerapidearen oiñarria da.

—Bakotxaren azkatasunari eta guztien eskubide-bardintasunari eutsi bear jako, endea, kolorea, siñismena ta erriketa-eretxia dirala ta, iñor berezitu barik.

—Endakeria, erraza-zalekeria, arrisku aundiko gaixoa da.

—Laterri aberatsak eta txiroak, ainbesteko aldeagaz nabarmen agiri dira eta alde ori kendu egin bear da.

—Laterrien alkar-laguntzea, gudak kentzeko ta zuzentasuna zaintzeko bear-bearra da.

* * *

«Basauri» sariketa: Euskal-ikasketarako da. Saria 100.000 laurleko. Gaia: Lengo edo oraingo Euskal-jakintzaren alderdi guztiak. Sariketa au urtero egingo da eta urte bakotxean sei gai oneitatik bat erabilliko dau: Kondaira, elertia, arkeolojia, giza-izaera, arte, eskubideak. Aurten kondairatik asiko da.

Erderaz edo euskeraz idatzi leikez lanak. Luzerea neurri barik. Garagarrillaren 31'ra arte bialdu leikez lanak.

Basauri'ko udaletxekoak be euskal-gaietan!

* * *

Tarragona'ko kardenala zan Benjamin Arriba y Castro'ri omen-aldia egin dautsoe. 22 urtean ango Goi-gotzaiña izan ondoren, agur egin dau.

* * *

Espaiña'ko 23 gotzaiñek idazki agiri bat idatzi dautsoe zuzendari daben Casimiro Morcillo'ri: Gotzaiñak munduko gauzetan larregi sartzen dirala eta eleizako gauzetan bear dan besteko ardurarik ez dala artzen diñotse.

* * *

«EUSKALERRIA NEOLITIKOAN ASI TA ERROMATARREN ALDIRA ARTE»: auxe da Juan Maria Apellaniz'ek Bilbo'n emongo dauan berbaldiaren izen-burua.

Apellaniz jaunak asko daki eta, bear bada, gure Barandiaran'en oiñordeko izan leiteke.

Baiña, zori txarrez, euskerarik ez daki eta ikasteko usterik be ez, antza.

* * *

Iribar, Athletiren atezaiña Madrilleko izparringi guztiak goraltzen asi dira. «Pueblo»k diñoanez «Madrid»'ko taldean jokatu bear leuke.

Beti bezela «beiak emen eta erroak madrillerrentzat».

* * *

Frantzia'rena zan Guinea'n 92'ri eriotzerako epaimena emon dautse. Conarky'ko Goi-Gotzaiña eta beste 71 betiko espetxeratu edo lanperatu dabez. 58 edo geiago urkatu dabez.

Au bere demokratziaren izenean, jakiña!

* * *

Uganda'ko Obote lendakaria, Syngapourren egoan bitartean bere aulkitik kendu dabe. Eskumatar militar bat, Amin, egin da ango nagusi.

Ikusten danez, Afrikan, iñork ez dau bere buru ziurregi. Ezker ta eskumatarrak... uztai baten ertzak.

* * *

Frantzi'tik esnea ekarten ei da, ementxe bertan lortu al zana... baiña merkeago. Baserritarrak ete dakarre Haziendarentzat dirurik? Bilbo'ko «transportearen» ugazabak ba'litzakez...

* * *

Mungi'ko Laukariz auzoan «Club del Campo de la Bilbaina» deritxon uri buru barria egingo da. Ango baserritar batzuk aberastu dira baiña itzketan euskaldun dan erria txirotuko da ziur aski.

* * *

Lejona'n bide-azpiko tunelak egingo ei dira. Zenbat eriotz bear izan dira erabaki ori artzeko? Eta Derio'ko kurutze-bidean zer?

Ikusten danez ez da oraingoz «kupoa» beti kanposantua urrean dagolako bear bada...

* * *

«La Croix» Frantzi'ko izparringia bere gobernuaren aurka gogor jartzen da bertako izkuntzaren alde ezer egiten ez dabelako.

Espaiña'ko Irakaskintza legea jartzen dau ere dutzat... Ori orrela balitz!

* * *

Guinea'tik barri ikeragarriak etorri dira. Espaiñatuak urketu ondoren «erritarrak txistua bota» dautse ildakoeri». An bere pistolaren ordez ikastola obe izango litzakez.

* * *

Belfast'en irlandarrak gogor dabiltzez askatasunaren alde. Gauzak ulergaitzak dira baiña suztrai beti bat. Zergaitik ez dauka erri bakoitzak bere buruaren jaube izateko eskubiderik?

* * *

Israel'darrak gogor eta adoretsu dagoz. Pakea datozenari «Shaloom». Guda nai dabenari «Egarra». Eta gu antzekoak ei gara... bai zera!

BEGI-BI

EUSKAL-ERRIA ZER DOZU...

Mutil ule-gorria Alemandarra zan. Neskatillea, benetakoa ta ontasunez betea Bilbotarra. Biotz alkarri itz emonaz, ezkondu ziran ezkeroz, zoriontsuak dira urteetan bizitza ederrean. Sendian bat eta margo edo pintura saillean alkarren laguntzaille dira.

Berez arturiko doaiaren laguntzaz ta lanaren indarrez antzez-margolanean, escenografian, maisu aundia da Burman jauna. Bere ainbeste ta ainbeste lanek damotse berari zor jakon goratasun guztia.

Euskal-erri osoa, ziaro, arakatu dau ertilari begi ta biotzakin sarritan. Gure lurra, mendiak lauak, aldapak ta izpazterrak, gartsuki, maite ditu. Bai; orrek eta zerbait geiago be maite dau Sigfrido Burman'ek euskal-errian, bere emazte zoragarria ta onen erri maitagarria.

* * *

Senarrak nai emazte zintzoak, ontzat, artzen ditu bere lagunaren guraso ta odolekoak ta baita bere erri ta bizia. Ara, emaztearen jakituria, ontzat, arturik, zer iñoan margolari ospetsu onek.

«Nire emazteak diñoanez Euskalerria begitik ez da sartzen. Euskalerria biotzetik barrura doa gozotasun guztiagaz. Berezko zerbait maitagarri dau».

Bai. Gure itxastarrak, lengoak eta oraingoak alkartuko balitzakez, zer? Itxaso ta itxas ertzari begira, bizitza guztiko nekea, izerdia ta maitasuna euskaldun izate biurtuta ikusiko leuke. Itxasoa ederra da, baiña itxas-gizonak ederrago. Izpazterrak zoragarriak dira, baiña, an, inguruko lagunak, arek bai dira maitagarriago benetan.

Itxasoak eta legorra, berez, ondasunez orniduta agertu ziran. Ta emengo jendeak kantauri itxasoari ta mendi, ibar ta erriai euren jakituria, b darra, maitasuna ta eskubidea ezar dautsez.

Bizia maitagarri danez, gure itxas ta lurraren arnasea barrura sartze da. Ez bigunkeriaren adurkeriz, maitasunaren indar ta biziz baiño.

* * *

Orain mendira ba'goaz, gain igo eziñik ez dogu geure inguruan. Eu kalduna mutilla izan da, beti, mendi igoten ikatzkintzan nai zurgintzan me di barrenetako oletan. Irategi ederra amaika bidar, ekarri ditu igetagiz eb gita eusko basetxera. Antxe, men barren, egal ta gaiñean ixuri zitu bere izerdi ta indarra. Mendia bede katuta itzi eban gizonaren gurariz bearrez. Bere biziagaz biztu ta odolag gorritu zituan euskal mendiak.

* * *

Euskal-erriko lantegiak eta me indartsuak dira geure lurraren burñaz ta erriko semien adimen, gogo indarrez. Larraditarrak ta mibetarrasinismen bat eta maitasun bat zitu euren biziaren zuzendari, euskal bizi

Edozelako adurrez euskal bizia etzlur onetaratu. Jakituriaren Jakituri jarri ginduzan lur onetan. Lurra lagunak taju bat antzekoak. Ta eme go lagunak norbere jaioterri maitea zor jakon omena egin dautse. Landut Edertzea.

Gogoz onartu dabe beti, ta ardur otseindu. Itxasoa, lurra, mendiak, an nak, basetxeak, industriak, lagunak, g raso ta gazteak, umeak bat egiñik goz euskal bizian. Bizia ta maitas guztia, ortxe dagoz.

«Egin ta pozez esan geinke: Eu kal-erria biotzetik barrura sartzen da

SOLOZABAL'DAR PAULI

Omo gorte

Gurasoen osasunak ondorenik ba ete dakartso aurrari?
Baietz uste dogu.
Bizkaia'n alkool-gatxa zabal ei dago gizonen artean.
Jakitun bategana jo dogu:
Gure artean ezagun-ezaguna dan D. José Luis Goti osagillearengana.
Itaun labur eta azal-azalekoak egin dautsoguz.

Jaun ori: Euskaldunen artean ba-da alkool-gatxik?

Bai. Ba-da.
Bizkaia'n azterketa bat egin neban 1968 urtean. Jakingarri asko batu eta liburu baten agertu nebazan.

Liburu orren izena?

«El alcohol en Vizcaya».

Alkool-gatxa, aundia da Bizkaia'n?

Bai.
Inglaterra, Alemania, Suezia, Rumania, Hungria...'ren aldean eta dagokion neurrian, Bizkaia geiago da.

ZELAKO GURASOAK
ALAKO SEME-ALABAK

Europa'n, Bizkaia'k Frantzia bakarrik dau aurretik.

Gure Errian zer edaten da geien?

Ardaoa.
Bertoko edaria txakoliña izan da. Baiña lengo gizaldietan bere ardaoa, ardao asko, sartu izan da Bizkaia'n. Bertorako ete zan?
Ez dakigu.
Gaur, urian, gero ta geiago edaten dira alkoolezko beste edari batzuk.

Ardaorako jokerea dau gure Erriak?

Beste errien antzera.

Gero ta geiago edaten ete da?

Bai. Gero ta geiago.

Zergaitik?

Ardoa ugari, guztietariko, ona ta merkea dalako.

Orregaitik bakarrik?

Eta biotza poztu egiten daulako, atsekabe ta gomuta txarrak aztu-erazoaz.

Kaltegarria?

Neurriz edan ezkero ez.

Zenbat da asko?

Litro bat eguneko.

Zeri deitzen dautsozu mozkorra?

Edanda gero, ezaguerea galdu ta artez ibilli eziñari mozkor aundia esango neuskio.
Eta orragiño eldu barik, ardaoak «ikutu» egin dauanean mozkor txikia.

Biak kaltegarri?

Mozkor aundia norbaitek bost-sei bider artu arren ezin esan daikegu alkool-gatxa daukanik.
Baiña, domeka arratsaldeetan mozkor txikidunak asko izaten dira. Eta luzeroan alkool-gatxa arrapatzen dabe igarri barik.

Alkool-gatxa odolez ekarten ete da?

Odolez... odolez... noiz edo noiz, bai.
Ardaoaganako jokerea sarriago.
Baiña, batez bere, alkool-gatxaren ondorenak ekarten dira

Gurasoen gatx onek ondorenik ba-dakartso aurreri?

Gaixoen semea guraso osasuntsuen semea baiño makalagoa izaten da. Ona emen errazoia:
Aita-amen «kromosomak» bat egitean, alkool ondarra (bardin beste edozein botika ondar, be) ba'daroe, berezko ez dan ta bear ez litzaken gai bat aurkitzen da bertan.
Eta, jakiña, ortik sortutako aurrak ba'leiteke, kutsu orregaitik, bear besteko osasun osoa ez ekartea.


Aita ala ama gaixoa izateak, alderik bai?

Sortzerakoan, bardin kaltegarri.
Baiña, aurra, jaio aurretik amaren sabelean luzaro egon eta jaio ta gero be amaren altzoan ta bularretan sarri dagoan ezkero, amaren gaixoa kaltegarriagoa.

Gure irakurleen artean ba'leiteke norbait au dala-ta kezkaz egotea. Olakoari zer esango zeuskio?


Bilbo'ko Diputaziño ondoan «Dispensario de lucha antialcoholica» dago. Orra joatea dauka ta ango osagilleak esango dautso bere egokera ardurazkoa dan ala ez, eta zertzuk egin bear leukezan.
Baiña, beiñena auxe: egunean boteilla osoa artu bearrean, boteilla erditxoa edan dagiala.


Agur ta eskerrik asko zure esanakaitik.


Cheques Regalo



Cheques de Viajero



Cuentas Corrientes


Domiciliación de Recibos


Libretas de Ahorro


Atención a la Mujer


Giros y Transferencias


Operaciones de Crédito


Banco de la Mujer

Zuk, diru-etxe batetik itxaro daikezuzanak baiño gauza geiago eskeintzen dautzuguz.

Gitxi diralakoan gagoz gu.

Ona emen emakumeentzat sortuak. Batzuk ez dira barriak. Zerbaitek baiña, barritzen ditu: emakumeeri eskeñiak izateak.

Andreari begira, andereiño egokien ardurapean, aukera barriak gertatu ditugu, gure Banko barruan.

Ta danau, emakumeak gizartean egin daben aurrerapenak pozez arroruten gaitualako dagigu. Onetara, gure omen eta goralpen onenak, etxeko-andra zurrarengana ta bere buru-jabe danarengana, bardiñean, doaz.

Gure eskeintzak, gaurko emakumeari zor yakozan esker-on eta laguntzaren agiriak dozuz.

BANCO DE BILBAO (BB)

onek, emakumeen eskubidea siñisten dau.

Autorizado por el Banco de España n.º 8100.

IDAZTI BARRIAK

Egillea:
Iñaki LINAZASORO.

Izena:
H-gabeko umorea.

Argitaratzaillea:
KULISKA SORTA.

Irarlea:
Itxaropena. Zarauz.

Eguna:
1970'n. jorraillaren 25'ean.

GURE UMOREA

Euskaldunak umoretsuak, barre-zaleak, ala itunak negar-zaleak ete gara?

Begiratu gure abestiak. Era bitakoak ikusiko dozuz: batzuk melankoliz beteak, esaterako: *Ator, Ator, Goiko mendian, Itxasoan laiño dago...;* beste batzuk, ostera, pozez beteak, esaterako: *Aldapeko sagarraren, Atzo artsaldean ibilli giñan,* eta edozeiñek dakian lez, dantza-abestiak edo soiñuak.

Eleiz-abestiak begiratzen badoguz ituntasuna edo sakontasuna ugariago agertzen jaku.

Bizkaitarrak baiño gipuzkoarrak, bear bada, barrekariagoak izan leitekez. Baiña euskaldunak, neure ustez umore egokia ta neurtua dauko, noz agertu eta noz gorde ondo dakigu.

AGUR'aren 9'garren zenbakian, azkenengoa ain zuzen be, YURRE'tar Yulen A. k. MUXIKA'ren *Pernando Amezketarra* eta LINAZASORO'ren *H-gabeko umorea* au ondoan ipinten ditu. «Erriak maite izan zuan orduan eta maite izan dau gero be, Pernandoren ateraldien liburutxoa».

IZEN-BURUA

H-gabeko umorea daroa liburu onek izen lez. Moncho Goicoechea'ren *H de humor* gogoratzen dausku.

Umorea ondo dago' idazti guztia umore utsa da ta. *H-gabeko* izenean bertan egertzen dan lenengo barregaia da. Idazti barruan ez da agertzen arazo ori *Itzaurrean* izan ezik, eta emen oso polito: «Berak jakingo dute noski atxe auek bear diran tokian jartzen. Artu, mutillak, eta egin zabalkundea...!».

H'aren arazoak, berez sakona izan ez arren, sakonetik banandu gaitu. Orregaitik barregai bategaz arazo au azalera ateratea ondo dagola uste dot.

Nai dauana esateko, baiña H'ak euskeraz egitera beartu dauala, diñotse egilleari aldizkari baten. Ori egilleak esan bearko leuke. Ez dot uste orrelan danik.

EGITUREA

Itzaurrea ta zazpi sagardotegi daukaz idaztiak.

Sagardotegiak beste idaztien azalburuak edo kapituloak lez dira. Izen au zergaitik artu dauan egilleak berak diñosku 10'n. orrian: «Sagardotegi eta artazuriketak izan ziran ateraldi asko ta askoren kabi goxo».

Barregaiak guztiz irureun bat dira eta irurogeta amar erritan batuak. Au egilleak berak diñosku sarreran edo itzaurrean.

ELBURUA

Itzaurrean egilleak argi berba egiten dausku. Bere elburua: «Bilduma onetan, irakurle, ez zazula suizidio, izorraketa, lizunkeri, aborto, *angustia vital,* droga ta abar'en billa alperrik jardun. Errian sortutako filosofia erakutsi nai det. Eta gutxi al da...?».

Nire ustez, elburu au errez lortzen dau egilleak. YURRE'tar aitatuak diñon lez, Pernamdo'ren bidetik.

Geiago oindiño. Umorea ta *filosofia* ez dira bardiñak Euskalerriaren txoko guztietan. Orregaitik sagardotegi bakotxean txoko bat artzen dau: Goierri, Kosta-aldea, Mondrau, Beterri, Plaentzia ta Eibar, Urola...

IZTEGI TA IDAZKEREA

Egilleak darabillen iztegia ezin neinke osoan onartu.

Gure errian erdel-berba asko sartu dira, egia da. Berba oneik be oraintsu sartuak badira ezin onartu. Erritarrak izateko urteak bear dabez. Berba zar asko onartu bearrekoak dira: *lege, parkatu, bake, berba, aingeru, gertu, denpora, akulu, ari, goru...* Oneik mille urtetik gora daroez eta onartu bear.

Baiña: Suizidio (10'n. orr.), gobernatu (20'n. orr.), akabatu (20'n. orr.), enkargatu (21'n. orr.), suertea (14'n. eta 18'n. orr.), disfrutatu (14'n. orr.), konzejalak (14'n. orr.), duro (14'n. eta 18'n. orr.), probetxo (16'n. orr.), periyan (16'n. orr.), negozio (17'n. orr.)... Oneik, geienok beintzat, ezin onartu leitekez.

G. MUXIKA'k iñoan lez «zabaldu, zabaldu beti euskera» (AGUR 9, 8'n. orr.). Eta umorea orretarako bide on bat izan leiteke. Baiña apurtxu bat itz garbiagoz, ez?

Idazkereari, ortografiari, begira, legedi baten bear-izana ikusten dot idazti onetan. Au bizkor egin bearreko lan bat dogu eta onetan egillea ez da errudun, baiña utsa or dago: noz marra edo zubitxua erabilli, noz adartxoa, ta abar... Esaterako: *Madridetik, Ursuarandik, 36'eko, «Jose Manuel Txikik», Oñatiko, Zegama'ko, «Dolarea»'ko, Kozka'n, Pasai'ko, Joxepa Mari'k, Praixku, Molinao'ko...* onelantxe idatziak datoz. «iaioena» be irakurri dot eta pozez irakurri be. Y kentzeko bidea orixe izan leiteke.

JOSKEREA

Joskerea oso ederra eta argia da. Geienetan beintzat euskereari dagoikona. LINAZASORO'k ba daki euskera eta, uste dogunez, idaz-lanean jarraituko dau, eta euskerearen onerako izango da. «Umorea indarduna, kementsua izateko, izkuntz eta giro berezkoan» (Bergson).

IRARKEREA

Itxaropena argitaldariak lan polita egin dau. Azalean, margo ori ta baltzez, gizon euskaldunak. Gero barregaiak ondo bananduak, sagardotegiak bere bai, azkenean itoten dagon bat ateratzea: Euskalerria ete da?

AZKENA

Iñaki LINAZASORO'ri zorionak eta eskerrak emon bearreko gagoz. «Negar egiteko *motibo* geiago izan ditu Euskalerriak, parrez edo irriparrez baiño... (9'n. orr.), baiña Gora biotzak...! diñosku eta bere barregaien bidez poza dakarsku.

OLAZAR Martiñ'ek

Lo ta Ernai

EGINGO YUEK

Joan dan astean, illero lez, ibilli nenbillen Mungi'tik zear, ta alako baten, enparantzaren albotxo baten datzan kiosko-aldizkari saltokiagaz topo egin neban. Premiña barik, baiña jakin-miñak eraginda nunbait, itandu neutsan bertako neskato saltzailleari ea ba'eban edo euskal-irakurgairik salgai: «Agur» «Goiz-Argi» edo besteren bat.

Ezetz, erantzun eustan beingoan; ta nik berari barriro; «Alegiñak egin bear dozuez, aulako erriburu euskaldun baten, erderazko elebarri ta aldizkariak ezezik baita euskerazkoak ere erriari eskintzeko». Irribarrezko zimurtze bat bere arpegian, ez eustan baiña ezezkorik emon, ta ezmezean lez jardun eban akiakulu batzuk jaurtiaz.

Ta au ikusirik, ene mungitar lagunok eta benetako euskalzaleok, diñotzuet: «Zuek bere leiatu, ekin ontan bere. Arpidedunak zaree asko ta asko, euskal idaztirik aurkitu eziñean Bilbo'ratu bearra izango dozue tamalez, Verdes'enean edo erosi ta irakurteko».

DAGIDAN NEUK

Beste osteratxo bat Galdakano'runtz, ta angi kiosko-saltokian dagerrez salgai bizpairu euskal aldizkari. Nire izenkide ta bertako idazle trebea dan «Basajuan» izen ordez, ta izen-abizenez Altuna'tar Josu'ren euskerearen aldezko lana adierazoz, numbait.

Irudi ez bardin bi damotsuedaz. Zuek, erri bakoitzeko euskaldunok, nik baiño obeto zuoen erriburuen barri dakizue. Gaurko nirea sinbolo bat bakarrik da. Sinbolo eragillea izan daitela guztientzat gura izango neuke. Batzuen erantzuna baiezkoa izan daitela besteena ezezkoa atanbe. Guztioen aurtengo elburu beiñena Bizkai'ko euskaldun erri danetako kiosko-koetan euskaldun izparringi ta aldizkariak saldu daitezela, ta oparo saldu be, izan daitela opa dausuet, geure euskerearen alde.

Guztioen zeregiña da. Dan-danok alegindu ezkero, ez da ezinezkoa.

ARREGI'TAR JOSU

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

Eten-bako alegiñetan

LOIOLAKO IÑAZIO DONEAREN GOGO-JARDUNAK

Don Luis Egia Rezola apaiz jaunak euskeratuta, ta alboan gaztelerazkoa dakarrela, agertu barria dogu era onetan lenengoz. Irarkaldi errikoi ta merkea, 150 laurlekotan; baita beste apainduago bat, narruzko azal eta etrz-urreztatua, 350 laurleko. Lekuona'tar Imanol jaunak egin dautsa itzaurrea. Ta guk baiño obeto aztertu dagianez, emen jartzen doguz itzaurre orretako atal batzuk:

«Arritzekoa da 400 urtean euskeratu gabe iraun izana — beste ainbeste ta ainbeste izkuntzetara itzulia izan dana.

Aita Kardaberatzek XVIII garren gizaldian egindako irakurgaiak; ez baitziran San Ignazioren Liburuaren «itzulpen jator». Olabide'tar Erraimun aita izan zan, lan oni lenengo, esku-erantsi zionа. «Gogo-iñarkunak» ezarri zion bere itzulpenari.

Gaur irurogei urteren buruan berriz ere beste itzulpen bat datorkigu eskuetara, euskera argi, xamur, errexean. Apaiz baten eskuz. Don Luis Egiaren esku goxoz.

Eman ere digu leen, bere lanen eskuerakutsi eta muestra zenbait: «Oraingo Aste Santua» adibidez, euskera xamur, etxekoi, errexean... Gaur, euskera berdiñean «Loiolako Iñazio Donearen Gogo-jardunak» ematen dizkigu.

Irakurle zuk zerorrek ikus, nolako erregalia egiten dizun, Apaiz tolosar, gure adiskide onek. Zuk ikus».

Ta ara zer diñoskun euskeratzailleak berak:

«Autografo» deritzan idaztiari jarraituz, itzez-itz itzulia.

Apaletan jarrita bezela lerroz-lerro ikusiko dituzu Santuaren gogapenak. Gipuzkoako euskera errikoia darabilzut.

Begira beñepein, nolako indarra artzen duan euskeraz adierazita, gogo-jardunetako Asiera-Oñarriak; **eta nola pekatuak usteltzen duan gizonaren izatebarrua (23'gn.)».**

EL DERECHO FORAL DE VIZCAYA EN LA ACTUALIDAD

Adrian Celaya Ibarra jaunak idatzita. Bizkai'ko Lagi-zarraren zeaztasunak gazteleraz.

Idazti garrantzitsu onen barri emoteko, bere arkibidean dakarrana jarraitzea dogu bide errezen eta argiena:

Asteko, O.N.U.'k emon ebazan Gizasemearetazko Eskubideak aztertzen ditu, ta eskubide-utsaren eta gure legearen neurrian aztertu.

Or datoz gero edestian zer izan dan gure lagi-zarra, zertatik eta zertara ibilli dabillen. Noizkoa ete dau bere jaiotza? Zein bardintasun ta nolako askatasun? Nagusikeriakin, otseinkeria ala bardintasuna?

Gero, Bizkai'ko Iurraldeak. Itxas eta sal-erosketako legeak. Gaur arteko lagizarra. Erria; bizkaitarra izatea.

Belaun-ondoretzaren indarra. Zelan da? Jabetasuna, jabetza aldaketak. Ezkonduen arteko jabetza ta otseintza. Alarguntza eta ezkontza-austeak.

Il-ostekoak, bearrezkoak eta gurarizkoak. Il-buruko emoitzak. Azken-nairako askatasuna.

Oneik eta beste zeaztasun ugari dakarraz. Gure erriaren gora-berak ulertzeko bearrezko doguzan ikasgaiak. Danori erraz ulertu eta sakon aztertzeko laguntza ederra.

Idazti au be irarkaldi merkean 150 laurleko; eta bestea lez apainduagoan... 350 laurleko.

* * *

Idazti biok azken orrietan, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k argitara emon ditun idazti sail ederra dakarre, bakoitzataz argibide batzuk emonaz.

Eskatu egizuz LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA orretara, Apartado 1510-Bilbao, edo oi-dozun idazti-saltokira.

PEDRO PUJANA ADISKIDEAGAZ BERBETAN

Pedro Pujana adiskidea liburu baten egille dogu. Oraintsu argitaratu dau «Euskal-aditza» (bizkaiera) beronen izena. Bizkaierazko aditz-erak dakarz. Egillea Morga'n bizi dalako, bertara joan gaiakoz beragaz berbalditxo bat egiteko asmoz.

—Liburu bat argitaratu dozula-ta, zeugaz iketaldi bat egitea gura neuke.

—Prest nozu erantzuteko.

—Noiz agertu zan zure liburua?

—Lau illabete egin egiñak oraintxe dira irarkolatik urten ebala.

—Norentzat idatzi zenduan?

—Bizkaierazko aditza ikastea opa daben guztientzat.

—Arrera ona izan ete dau?

—Nik uste baiño obea. Lau illabete onetan seireun aletik gora saldu dira. Ni-neu pozik nago.

—Bizkaia'n bakarrik?

—Geien-geienak, bai. Baiña bizkaitarrak ez diranak be erosi dabe. Donostia'n esate baterako, ogetamar ale ortxe-ortxe saldu dira. Ez dago txarto onango liburu batentzat.

—Kritikarik egin dautsue?

—Bai. Urtarrileko «AGUR» en agertu zan Martin Olazar adiskide andiak egiña.

—Ta zelako arpegiera ipiñi zenduan Olazar'en kritikea irakurri zenduanean?

—Zuk badakizu nor dan Martin Olazar gure adiskidea. Orea ondo eginda gero ogia egiten dakiana. Buru argikoa ta adimen zorrotzekoa dogu-ta, zernai eskuetan darabillela, ondotxo arakatu barik ez dau itxiko. Angiozar eta Bergara aldean esan oi dan legez, egurtu apur bat emoten dausi bere kritikan. Baiña egurtuok mesedegarri izan oi dira, artzen jakin ezkero. Ta nik eskerrik gartsuenak damotsodaz Olazar adiskideari.

—Beste iñork aitatu dau zure liburua?

—Aita Lino Akesolo'k lantxo polit bat argitaratu eban «Zeruko Argia»'n, berak dakianez, idazkera txairoz egiña. Euskaltzainburu barri dogun Aita Villasante'k egiñiko eskutitzak, batez be, alako arnasea emon eustan, «euskalkiak erabiltzea ta lantzea guztiz zillegi dala» ta olakoak esaten eustazan-eta. Ta «Aranzazu» izeneko aldizkarian be aipamen egokiegokia ber-berak egin eban. Eskerrak emotekoa benetan Aita Villasante'ri, baita Aita Akesolo'ri be.

—Noiz bururatu jatzun aditzari buruz liburua egitea?

—Ara! Orain amasei urte Oña'n nintzan. Ta Gipuzkoa'ko lagun batzuk eurai euskal aditza irakasteko eskatu eusten, nork irakatsirik ez eukela-ta. Baiña nik ezin irakatsi; irakasteko beste neuk be enekialako. Ta orduan lanari lotu nintzakion ta lau-bost illabetean jardun neban jo-ta-ke aditza ikasi ta ikasi, egunero sei-zazpi ordu eginkizun onetan emoten nituala. Orduantxe aztertu nituan batez be Arturo Kanpion eta Luis Eleizalde'ren aditz-lanak. Orduantxe ikasi aditz jokoak zelan eta mundik datozan, zein dan euron sustraia ta onelango beste jakingarriak. Gero, ikastaro osoa egin neban aitaturiko laguneri gipuzkerazko aditza azaltzen.

—Liburua aspalditxo egiña da, beraz?

—Ez, egin barria da. Baiña orduan Oña'n egindako lana dauko oiñarritzat. Lan a egin izan ezkeneu, ezin ezelan be olako libururik argitaratu. Morga'ra etorri ta berealaxe Gernika inguruko abadeaditza irakasten asi nintzan. Jakiña, bizkaierazko aditza. Ta abadeontzat ikasbide ta lanbide izan zaiten, orritxo bana idazten neban makiñaz astelenera batzarrera eroateko. Orduantxe bururatu jatan mukokopiaz edo, aditz-era guztiak sailka ipiñi ezkero lagungarriago izango litzakiela. Ekin eta ekin, orduak eta orduak emon, au kendu ta bestea ipiñi, apurta barriro idatzi, Azkue ta Altube'ren liburuak azter tu ta aztertu egin ta azkenean liburu orrexek urten

—Erreza da euskal aditza?

—Izan ez, ostera? Gura leuke! Aditza gaitzdala ta gaitza dala entzun da entzun egiten aspertu be banago. Bai zera gatxa! Berez berez ikastekoa ez da. Jakiña! Askok orixe nai izango leukee, eziriko alegin barik, liburua eskuetan artu ta beste bat guzti-guztia ondo baiño obeto ikastea. Ori ezin izan baiña. Zein izkuntz eta zein aditz ikas daiteke baino alegindu barik eta egon-egon eginda? Euskerazko aditza ez da besteak baiño zaillago. Nik-neuk emen zago dala esango neuke. Aditz-jokoen osagaiak eta etorbideak zeintzuk direan jakin ezkero ta aditz-guntzailleen jokoa gogoan izan, beste zailtasun ez dirik ez daukazu.

—Zergaitik ez dozu liburua euskeraz idatzi?

—Egia esan, euskeraz pozago idatziko neuke liburua. Baiña eunen bat oarkuntza edo jakingai datoz Azkue, Kanpion, Altube, Eleizalde, Zamarripa ta beste euskalari ospetsu batzuengandik artuta. Ona irakatsiak berbaz-berba aitatzea nai neban. Ta era raz idatzi eben ezkero, erderaz ekartea gurago nuke. Bestalde, arazo onetan iritzi ez-bardiñak dira. Zein alderdi gogoan daukazun, orixe da guztia. Aldebatzueri begira ba gakiez, edozein liburu euskeraz idaztea egokiago litzakela ezin uka daiteke.

—Itanozko aditz-jokorik ez dakarzu liburua

—Ara! Ika diardugunean erabiltzen ditugun aditz-jokoak oraindik neuregandu barik daukaz. Zuk dakizunez, ni Olaeta'koa naz, arabarra. Eta nire erri aldean itanozko aditz-joko berezi berezi erabiltzen dira. Azkue jaunak ainbat biderrez aitatu dau xeetasun ori bere «Morfolojia»'n. Orregatik bizkaierazko ika-berbetea besteai irakasten asi bai leen, neuk sakondu bear. Ta arlo onetan ikasle ma

—Besterik ezer?

—Bai. Aita Xanti Onaindia'ri ta Julian Olazabalaga adiskideari zor dautsedala nire liburu Eurak adoretu ninduen beste iñork baiño geiago egin neukan liburua argitara ekarteko. Eurak izan ezpa ra, eneukean gaurko giro onetan liburua irarkol eroateko ausardirik izango. Eskerrak indar-emoilla

—Zer gura dozu «AGUR» en irakurleentzat

—Auxe: euskeraren alde, sutsu egin dagiga premiña aundia be aundia daukagu-ta.

—Eskerrik asko ta agur?

ZABALO'TAR BALENDIN

BERTSOLARIEN ABIA

Euskalerriko bertsolaria
euskaldunen urretxindor
euskal basoan zabal dituzu
euskal kantu eta txor-txor.
Zure kantua neurtutzearren
iñundik ba-dabiltza or
zure biotzan baiñan euskera
beti izango illezkor.

Zerua goibel, laiño zuriak
ta beltzagoak ba-datoz,
mendi tontorrak ezkuta dira
laiño beltz-beltzen azpikotz.
Egabera ta antzarrak ere
etor bai-ziran aurrekotz
euskal mendiak eta zelaiak
laister edurrez eta otz.

Eta onela bertsolaria
urretxindor zeralakotz
euskal basoan lurmendu zera
gure Aritzen azpikoz,
bertan bai-duzu bizia-eta
bertan ere euskal biotz,
bert-bertatikan zabal nai duzu
euskal bero dalarik otz.

Baiñan ixilik zaude gaur-egun
urretxindor euskalduna
zure bizitza neurtu nai dute
nola oi loro jarduna,
eta besterik ez duzu maite
Jainko ta euskal entzuna
ta asabengandik edoski zenun
azkatasun oiartzuna.

Errusitarren praka gorriak
batek egingo eskeñi
ta beste orrek txinatarrena
zer jantzi ez ba zeneki,
eta zenbaitzuk «bufanda» illuna
euskal «atxe» izenekin,
baiñan berorik ez duan «atxe»
ongi ez dator zurekin.

Argatik uxaz arrotz kiyoak,
zuk euskerazko eztarri
bada loroen abestiakin
zu mutu, gor ta elbarri.
Txori bakoitzak bere erara
ekin bezaio kantari
«Bertsolarien Kabi» ontatik
euskal erri maiteari.

UXOLA

ABURU TA ESKABIDE

Ez dakit nork artu bear daben aintzakotzat eskabide au, baiña uste dut guztiok onartu edo ardura pitin bat artzen ez badogu, ez-garala urrun joango gure euskera maitearen zabalkundean.

Asikeraz esan bear dut, edozein sakelek erosteko aiña izan bear leukezala gure idazti ta iztegiak batez bere. Iztegi on edo onenetarikoak, aintziñako igikundeak utzi ta alkartasunean egin, irabazia lenengo lerroan ipiñi gabe, alan da nire ustea... zori gaiztoko % euneko ainbestea! Ez daiguzan gazte askon gogapen zintzoak orbandu.

Au diñot, egun asko eztala Bilbo'ko idaztitegi batera idazti baten billa sartu nintzan, idatzi a ikusirik arrituta gelditu nintzan, ain zan ederra, baiña ez nintzan edertasunen billa izan, ez asko gitxiago ere, ta naiz batzuk erosteko lain txindi izan, atera nintzan ainbarik. Ez da idaztia kutxa barruan eukiteko edo idaztegian autsak betetzeko, bestela, norberakin eta sarritan aldean, soiñean erabilteko atan be ikasleak. Zergaitik egiñ ez ingi eratsuago, izki txikitxuago ta narruzko azalik gabe, eroskorrago urten daian guztiontzat? Edozein sakelek miñ edo kalte aundi gaberik erosteko bidean ipiñi. Edo ez ote ditugu utzi nai lenagoko azeri egiteak, ta jarraitu gogapen zintzoan naimen onak ustiatutzen?

Ez da ori biderik zuzenena eramatea gure naian, nire ustez.

A'TAR AMANTZI

NORA BIALTZEN DIRA?

Itxas ertzeetan, mendi gainetan ta lauetan sinismen bigaz, beti, ikusi zaitut, ene erri maitea. Lurra maite dozu. Egia da. Gizonentzako sortua izanik, lurra lantzea ta maitatsea bidezkoa ta zor dan legea da. Ta guk zapaltzen doguna geurea da. Ta zuk orixe maite egi guztiagaz. Au alperrik ez da ontzat artzen.

Beste egi bat be ba dogu, indartsu, euskaldunen artean. Beti bizi nai izatearen egarria. Gizonaren barruko leia da. Kendu ezina. Illezkorra.

Ementxe urietan nai errietan ta batez bere euskal basetxeko giro amultsu ta jatorrean millak neska ta mutillak agertu ziran euskal gizardira.

Ume guzti orrek emen, ikusi, asmatu ta artu ebena, ez eben artu izango, Tailandian jaio izan balitzaz. Emen pixkat bada bere, bertokoa artu eben. Sortu ziran tokiko lurrak emona. Ez eben artu bear eben aiña zoritxarrez ta lapurkeriz.

Euskal gizadiko landara barri onek giza-sortzez, erri biziz ta ezikeraz, era bi orretako almenez apainduak izan dira. Ez euren nai izatez, euren egilleen gogoz, jakituriz ta maite indarrez baiño.

Lur onetan jaio baziran be, berezkoa izan zan. Ona etorri ondoren, odol, mami, azur ta gogozko bizia, emengo, egokieran tajutu eutsen. Au berezkoa da. Aren biziak inguru ortan, girorik onena izan eikeen aurrerantzean bere.

Gure gizadi zelai onetan amaika landara eder izan da Euskalerri osoa edertzeko aiñakoak.

Baratz jori ontako gaztetxoak, alperrik, etziran etorri gure bizi-mintegira. Euren barruan ekarren ots bat azi gisara. Ta deia entzukeran, zaletasun ori guraso ta lagunen artean agertu eben. Gizonduteko asmoa zan, naita euretariko askok asmo aundi ori agertzeko egokitasunik izan ez arren oraindiñokoan.

Ume ta gazte geienen asmoa geure erria ezbear guztietatik gaizkatzea zan. Guraso ta inguruko guztiai argia ta egia ekarri, ta al dala, gaitz guztien kateiak apurtu. Origaitik aita ta amaren baietza pozez beterikoa ta zabal-zabala zan.

Zenbat gazte zoragarrik, amaika bidar, begitaru ete eutsen kantauri itxaso, mendi, ibar ta erriei, euren lantegiei, maitasunez, beterik. Eta ortik askok euren bizia, oso-osoan emongo eben geroago ezpataren azpian, azkenengo odol tanta emon arteraiño.

Giroa samurra, biotza zabala ta burua bizkor eukezan gogorik onenagaz bizitura, gizadiari on egin guraz ta batez be norbere erriari zor eutsen zuzentasunezko otseintza bearrean. Gazteak aurrera, ta urteak urtea ekarren ondoren gizon barriak sortzen.

Batzuk zintzoki, euren buruari galdetu eutsen: Ni neure Egilleak nun sortu nau... ze almen emon daust... zertarako egin nau... ze erriren otseintzarako naz...

Egi ta zuzentasunezko burubide onek, ondo ausnarturik, ainbat eta ainbat gazte gogorik onenagaz arduratu ziran euren almenak landuten. Zor ebena egitea besterik etzan. Jaungoikoari zor eutsena batetik eta norbere erriari zor eutsena bestetik.

Zuzentasunezko eginbearra besterik ez da ba, izakera bakotxeko erriak, bere odol ta izakerazko zuzendari laguntzailleak eukitea. Ta onek al-danik ondoen, erri orreri laguntzeko gertatu bear dabe.

Jendeen alde, ain garbi ta indartsu, ikusten dogun egizko bear izan au, gure artean onartua ete da ala zapaldua?

Euskaldun gurasoak alabarik aski emon ditue mojatzarako, bai barruan bizi diranetarako ta bai gaisotetxe ta irakasten dabiltzazenetarako. Ta gure errietako moja etxeetan banakaren bat izan ezik, bertako alabarik ez dogu ikusten. Erriari gorroto dautseenak, sarriegi, ikusten doguz tellape bildurgarri orreetan.

Ori al da Jainkoari eskeiñita egotearen santutasuna? Norberari bizitzea emoten dagon erri bat bere bizitza muiñean orrenbesteraiñokoan zapalduteko eskubiderik, iñungo lagunengandik artu ete leiteke?

Jainkoari eskeiñita dagozen gizonezkoen artera ba'goaz oraindik oraintsu, ezagutu ditut jazoera samin batzuk.

Emengo jendeari otseinduteko berarizko doaiak zituen gizonak, Amerika'ra bialtzen ikusi ditugu. Jendeak ori ez dau ondo ikusi. Urrik emon bere ez. Ta zergaitik?

Jainkoak banatzen dituala talentuak, almenak, batari amar, besteari bost, besteari bi esaten dogu. Ta almen orren eran bearra egin bear dala otska gabiltzaz.

Euskaldun mutillak emengo jendea euren izakeran, izkuntzan ta edozein artetan otseinduteko amar talentu edo almen bereziak artu baditue, gizon orrek zelan bota leikez urriñeko lurretara?

Gizonen aldikeri ta naikeriak edozer egin ete leikee, Jainkoak erri baten era bidezkora tajutu dituan gizonakaz?

EGIEDER

EUSKALDUNERI EUSKERAZ

Arretaz irakurri izan ditut, aldizkari onetako zenbaki bitan, leenengo Puxana jaunarena eta urrengoan Baraiazarra'tar Luis jaunak ari erantzuten idatzi ebana, Meiñakabarrena'n jazotakoak dirala-ta.

Bigarren onek aurrerago bere zeozer idatzi izan eban, antza, jazoera onei buruz, baiña enituan irakurri izan.

Nik neuk ez dodaz ezagutzen idazleok; baiña biok dira eliz-gizonak, urrean.

Dabillen autu orrek biotz-ikutua egin eustan, neuri bere, Meiñakabarrena bakarrik ez dalako, Euskalerrian, olango edo antzerako jazokizunak jazoten dirana.

Puxana jaunak azaldu zituan bere esatekoak (edonor zuritzeko aiñakoak) baiña gure Erriaren egoereari begiratu ezkero, bestearen alde nago, ni neu. Ez dogu atxaki-billa ibilli-bearrik: bagara edo ez gara.

Ondotxu dakigu lekaime ta abade erdaltzaleak zelako kalteak egin dautsezan, eta egiten diarduen, gure Erriari; salatu dagikezan norbait baldin ezpa-da, barriz, ara-ta be geiago. Ontzat artzen dot, ba, oso-osoan, Baraiazarra'tar Luis'ek diñoan ori.

Baiña, goazan exatzera: Zer dala-ta ez dabe sortzen batzorderik, gure abadeak, goterkiko errietan zer jazoten dan jakin eta olako oker kaltegarriak zuzentzeko? Ala, beti jasan bearko ete doguz erri-izkuntza bear danez aintzakotzat artzen ez dabeen Gotzain, ta seroratxuok, Jainkoaren izenean, Erriaren eta Elizearen kalterako, egiten diarduezan bidebakokeriak? Noz itziko ete ditue gure abade, obispu ta abarrek erdalzalekeri ta goiko ta erri-kalte diran guztiekazkoa euki bearrak? Ez dagiela esan, gero, geurea zaintzen diardugunok au ta bestea gareala. Olan jokatzen dabeenak uste dabe, urrean, guztiak ulertzen dabeela erderaz. Au ez da, baiña, egia. Gure errietan asko dira, zaarren artean, erderea gitxi edo bat bere ulertzen ez dabeenak; eta, aurrez liburuetako erderea (apur bat sakontxuagoa esan nai dot) erdi-ulertu baiño egiten ez dabeenak. Baiña, naizta erderaz jakin, izakereaz bat egiñik daukagu guk euskerea eta euskeraz nabaitzen doguz jaurespidea (erlejiñoa) ta beste barruko eragin guztiak.

Caracas'ko uri zaratatsuan nintzan eta, norbaitegana joan bear, eta portugaldar abade batengana jo neban, autortzeko asmoaz, igande goiz batez. Asi najakon neure pekatuak esaten, baiña, alako batean, ezelan bere ezin gogoratu izan yatan esan gura nebana, edo esan bearra nebala uste neban, itz bat. Eta, ondotxu nekian itza zanarren, gero ta gero bere ez jatan gomutara etorri izan. Geure berbetan izan ba'lizt, errez esan negikean, nik neuk, esan bear neban itza. Baiña gogoan ez nebanak ezin urten, ondo, ta bear zanean, ezpanetara, zoritxarrez erderaz beste askoren bestean dakidan-arren. Naiz-ta erderaz be jakin, euskerea dabil, ba, euskaldun jator guztien buru-biotzetan, bizitzako biozkada, artu-emon eta barruikutu guzti-guztietan. Au gogoan artu bear leukee, gure abadeak, berandu izan baiño leen.


Naiz-ta iru-lau izkuntza jakin, euskalduneri euskeraz.

AURRAITZ

ITZ-EUNDUAK

(V)

Etxebarria'tar Juan Angel



ARGIBIDEA

ZEARRETARA.—A: Aldi.—B: Kitatubearra.—D: Gizaki.—E: Lokarri-itza. Ukatzekoa.—G: Naparroa'ko erria. Gatzduna.—I: Txori-oatzea. Bizkai'ko erria.—J: Eder (Lapurdieraz). Igalia.—K: Aditz-atzizkia; Lokarri-itza.—L: Igaro.—M: Garoa.—N: Zikin.

GOITIK BERA.—1: Ui.—2: Begira.—3: Torre entzutetsua.—4: Txori-mueta.—5: Menpera ekarri; Bokal. Kilikili.—6: Alai. Aldi.—7: Zoro. Bokal. Itxaroten.—8: Negar ta negar ari dana.—9: Ukaldi gogorra.—10: Arrazoi.—11: Abizena.

IV'ren agerpenak:


Zearretara = Ola.—Dan.—Miñez.—Da. Or.—Asago. Tril.—Leka. Auzo.—anaL. Aldun.—aR. aE.—Kalak.—Gor.—Oro.

Goitik bera = Ala.—Sen.—Dakar.—Magalak.—Odi. O. Ago.—Lañ. Lor.—Ane. A. Aro.—Zotalak.—rrudE.—Izu.—Lon.

ASMAKETEA

(III)

Otaola'tar Itziar



ZER EGIN ETZAIAKAZ?

II'ren agerpena: **Arana-Goiri.**

INSALUS

Urik garbiena ta osasungarriena

ERRIETAKO BARRIAK

Loiola'tik

TINKO MUTILLAK!

Erdi-bidea, itz polita baiña gezur utsa: erdibide ori, gutxi izan eta beti gutxi izango ditukela jakin, eta geienak azpiratzeko eskatzen diteken azpijan zikin bat dek. Etzegok gaur, ezta iñoiz ere, emekeri orren txistu sugekoiei makurtzerik.

Ez dek nolanaikoa gure errian asmatu diteken azpijana. Gezurrezko arpegiaren ostean, aizeri ortz ori-edentsuak zetoztek. Bein-betiko gure erria iltzera!

Ona, ene adizkide, iretzat nire deia: Ator barriz burrukara; euskaldunak ez dik iñoiz ere pot egin bear. Alkar bilduko gaituk berriz etsai maltzur oni bideak ebagiteko, ta ez adi ao-epelen «baiñan» oiekin atzipetua izan eta loak-artu. **Gaituk ala ez gaituk** onetan zegok egi bakarra. Gure burruka au eguneroko eginbearra izango diagu, ta ortarako errez jakatuko dizkagu; garaiak agitzen dikan neurrian:

Gaurdanik, ire laguntza txikienik ere ez ematean sator oiei. I, arpidetu intzan; ik, onetarako edo artarako dirua ematen diek. ETZAK ezer eman, bidea garbi-garbi ikusten ez ba'dek. Ta zalantzan ba'aiz, ezer onik egiten ari ote ditukan-edo, EZTA! Ziur-ziur ez ba'gaituk etzeok malkalkerietan ibiltzerik. Gaur artekoa naiko izan dek, urrengokoak salketa utsak...

Erdibidea omen dek; euskeraren alde're zerbait egin omen ditek; mutil onak ziruditek; apaiza (ta au ao zabalik esango ditek) dek-eta. Den-denok atzipebide errezak izan dizkitek. Gure nortasun osoa ta izatea bera larri zegok leiaketa onetan. Etzegok erdibiderik, erdibitutzerik bai ugari; ez ditek euskerarik maite, euren izakera naastuan gorroto baizik; mutikoak onak izan lezazketek, itxutuak baiña, ta oien «manejadoreak», onak bai, saltzaille onenak! Apaizak (ta denak ez, ezta gutxigorik ere), batzuk, Jaungoiko gabeak, siñismena barrutik errezago puzkatzen dela siñisten dutenak...

Etzegok erdibiderik, ta onezkero ikusi dek orrenbeste, ator ba burrukara!

BEIZTEGI'TAR JON

Basauri

«EDURRE» Bazkuna

Bazkun au 1966'gn. urtean sortu eben Ariz'eko txadon barrutiko kistar-bide irakasle gazte talde batek, jakiña, eleiz barrutiaren babespian da, leenengotan bertako umeak mendira ta ondartzara eroaten ibilten ziran euren asti aldietan. Zelan aldia igaro, asi zan bazkideak ugarituten eta orduan bai-ta geitu be euren egikizunak: eusko jakintza ta kirolketak.

Geroago, oldoztu eben euskal ikastola bat gertutea, baiña, eretxi ori ez zan aurrera eroan, gaztedi orren nagikeria gaitik porrot bat izan zan. Baiña, azkenez, aldi ontan ta zorionez, lortu da urte askorako itxaropena izango dana.

Orain urteak, Ariz'en Edurretako Ama Neskutsa (leenago Pausti Deuna)'ren basa-txaunoan, ospatuten ziran mezak, baiña eleiza barria egin zan eskeitiño, basatsauno ori eusko dantza taldeentzako geratu zan. Basatxaunoa naiz ta apurtuta egon, barriztuteko aldi andi ta txit neketsuak egin bear izan ebezan, eskerrak bertako gaztediak egin dabezan lanari ederto baten ipiñi da.

«Edurre» bazkunak, aldi ontan, ia eun bazkide daukoz, eta, darabiltzan jardunak, euskal irakaskintza, euskera ta izkuntzak, azpe-ezti (espeleologia), idaztegitegia, eusko-dantzak, mendigoizaletasuna ta abar dira. Bai-ta eraldu gurian dabiltz ta lortuko dabelakoan gagoz, eresia ta txistu ikastaroak astea. Gaiñera euren eginkizun txalogarrien zabalkundea egiteko aldizkari txukun garrantzizko bat argitaratuten dabe eta, bere orri-aldeak ugarituteko arpidekide barrien zain dagoz.

Erriko jai nagusietan be, Pausti Deuna'renak, alde artu eban bazkun ortako gazte taldeak, eusko oiturako jantziekaz jantzita, ta erakutsi ederra emonik beste gazte taldeen artean.

Basauri'n, tamalez, ia aldenduez joiazan Agate Deuna'ren abestaldeak eta eskerrak «Edurre» taldeari, jarraituko dabe antziñako oitura oneik, orretarako urten dau aurten Edurre-Ikastolako talde batek, andigarria egiñaz euren asaba zarrai gau orretan, giroa alaituaz euren abestiekin Ariz alderdiko bizitale guztiai.

Aurrera «Edurre» aspertu barik!

KOLDO

Morga

ANTXIÑA AUNDI

Morga'ko erria gaur-egun utsa dozu. Txikiago ta txikiago egiten dan erriska. Len-len, ostera, ospetsua izan zala dirudi. Erdi Aroan otsaundiko izena izan eban. Hübner eritxon Alemania'ko arkeologu jakitunak «oppidum» esan eutsan, ots, gazteluz inguraturiko ta babesturiko lekua. Amar dorre-etxe ziran batabestearen ur xamar Bizkargi mendiaren ipar alderuntz. Bizkai'ko Jaunak berak be Morga'ko Meakaur'en eukan bere gaztelua, ta noizik-bein egonaldiak antxe egin oi ebazan. Isasi'ko gaztelua eritxon. Gaztelu onetako arriz bir-jasoa izan zan, 1.580-garren urtean, Morga'ko San Martin parrokia, zazpigarren gizaldian, uste danez, lenengoz egiña izan zana bera. Gazteluaren ondakiñak 1.770-garrenean be antxe ikus zeitekezan. Urte orretan gaztelua egondako lekua garbitu egin eben lurra landu egien. Geroago, 1.894-garrenean, erriko ortusantua txikitxoa be bazala-ta, ormak erdi jausian be baegozala-ta, barri barria egitea oitu jaken Isasi'ko gaztelutzarra egon zan tokian bertan.

BIZKAI'KO BIGARREN JAUNA MORGA'N IL

Jaun Zuria izenekoa izan gendun Bizkai'ko lenengo Jauna. 909-garren urtean il zan. Nun ez dakigu. Beraren seme zan Munio Lopez jabetu zan orduan Bizkai'ko Jauntzaz. Bigarren Jaun onek amaika urtetan agindu eban. Baiña Iñigo Lopez Ezkerra (ezkertia zalako) eritxon semeagaz egundoko burrukaldia euki



eban Morga'n, eta biak alkarren aurka ekiñean ziarduela, semearen eskuetan il. Gorputz-illa San Martin parrokiara ekarri eben eta arri zuriz egindako illobi dotore-apain batean eortzi. Elizako sarreraren albo-alboan. Amaseigarren mendean, barriz, illobia aldara nagusiaren eskuma aldera aldatu eben. Eta 1771-garrenean, elizaren alderdi au luzatu egin bear zala-ta, illobia apurtu egin eben, arriak kanpantorrera eroan eta azurrak azurtegira bota.

ZERGAITIK

Iñigo Lopez Ezkerra, aita ilda gero, Bizkai'ko Jauna izatera etorri zan. Baiña aitaturiko txarkeri baltz-ikaragarri ori ez eban Bizkai'ko Nagusitza bereganduteren egin, norbaitek eraginda baiño.

Munio Lopez, Iñigoren aita, bigarrenez ezkonduta egoan. Iñigo, barriz, lenengo ezkontzako semea izan. Aitak gerran ziarduan moroen aurka. Aspaldi etxetik urrun. Eta 900-garren urtean moroen eskuetan jausi zan eta oneek Toledo'ra eroan katigu. Bigarren emazteak barriro ikusi be egingo ete eban ustea galdu eban, itxurea dagonez. Orduan emakume ustel-galduak Iñigo seme-ordeari beragaz sasiezkontza egitekoa eskatu eutsan. Gazteak, baiña, aitari itzala ta begirunea eutsazalako edo, ezezko biribilla emon amordearen naikeriari. Andreak ekin eta ekin. Seme-ordeak ezezt eta ezetz beti.

Geiago egin eban Iñigo Lopez Ezkerrak. Aita bizia galtzeko arriskuan egoala-ta, Toledo'raiño joan presondegitik ataratzeko asmoz. Joan eta lortu be bai aita askatzea. Bildur zan, alan be, seme leiala, aitak zerbait egingo ete eutsan bildur, guzurrezko salakuntzak orretara eroanda. Orregaitik, etxeratu zeitenean edozein gauza egiatzat ez eukitzeko esan da esan egin eutsan Toledo'n bertan.

ZELAN

Munio Lopez barriro Bizkai'ra etorri zanean, emaztearen aurrera agertu zaneko, andrea bere arpegia atzamarka urratzen eta uluka ta garraxika asi jakon Iñigoren aurka jardun eta jardun. Zitalkeriz, amorruz eta bengantza gurariz, gauzak batekoz bestera ipiñirik eta mutilla errundun egiñik. Ta gizonak siñistu. Sua ta garra eriozala, semea bereala il egin bear ebala-ta asi zan gizona. Iñigo'k iges egin bear, eta Morga'ko gazteluan gorde eban bere burua. Aitak, barriz, araxeraiño jarraitu ta bere guda-gizonakaz gaztelua inguratu. Iges andik be Iñigo'k. Urten gaztelutik, alboko errekatxo ondora jatsi ta goi aldera artu eban ariñ baiño ariñago. Gaiñera eldu zanean, aitak oiñatza edo usmoa galdu egian, zuzenean aurrera joan bearrean, ezkerretara egin eban eta arro batera jatsi, beste errekatxo baten ondora. Aita-semeak antxe izan eban burrukaldia, zeiñek baiño zieñek gogorrago ta gartsuago. Aitak esku-burdin bategaz. Semeak, aitagaz bardiñean ez neurtzearren edo, egur utsezko makilla bategaz. Azkenean, gazteago zalako edo, semeak menderatu eban bere aita ta bizia kendu.

EGIA ALA IPUIÑA ETE?

Zertzelada guzti-guztiak egiazkoak ez izatea badaiteke. Aspaldi-aspaldiko gauzak dira-ta. Mamiñari ba gagokioz, baiña, egia dala esan lei. Albistari zaarrak badamoskue jazoera onen barri. Alan da guzti be egia dalako agiriena, batzuen eretxiz, erriak urterik urtera ta belaunez belaun ekarri dauskun kontakizuna da. Gaur berton be, Iñigo aurretik eta aita atzetik ariñeketan joan zirean errekatxoari «arin-erreka» deritxo. Gaiñean ezkerretara artu eban lekuari «biurreta». Armak artu zituen lekuari «armaketa». Aita-semeak burrukaldia egin eben ererkondoari, barriz, «mortu-erreka». Onek zerbait esan gura dausku, nik uste.

PUXANA

Arratia

Zein da gure artean euskeraren aldezko ezertxorik egiteko gai ez danik? Diruzale zekena, ordi ustel, txoriburu ero-zoroa edo, barrenarra, kontzientzia lotan daukanen bat izan bear, nai ta nai ez.

Semez tolosarra ta bizitez eibartarra dan Larrañaga'tar Mikel'kin izan naz, bigarren aldiz, Bilbo'ko nasan (muelle); eta euskerari ikutu ta aitatu batzuk egin ondoren, Eibar'ko ALFA lantegiak beren izen eta entzutearen zabalkunderako egiñak izan dituan idazkortz apañetariko bat jarri daust eskuan euskeraren onerako lan egin dagidan. Ona emen Mikel eta biok non aurkitzen garen ba, AGUR ontan, dogun pitia ta aal dogun guztia ama izkuntzari eskeintzen. Eskerrik asko, Larrañaga; eta Arrate'ko arkumeak on-egin dagizuela.

MENDIZALE KAKATSUAK

Gipuzkoa'ko mendi basotxuetan artzaiñen eta ardien ondamendi ta zintzarri-lapur izan diran lako notin naskagarriak Arrati'ko mendietara bere jo dabe.

Dirala urteak, Areatza-Villaro'tik Gorbea'rako bidean, Karkabitxueta'ko etzauntza, baso-etxe edo dalakoan zegoan guztia ebatsi, ostu, lapurtu eben, etxeakin jabetu, ta azkenez txarri-toki biurtu bere bai; ta jabe ta nagusi ziranak... ixilik egon bear.

Oraingo makurkeria Kerexako-atxa deritzan etxetxuan izan dogu, eta eziera gaiztoaren umekeri ta lapurketa egin dabenak zeintzuk eta nongotarrak izan diranik naizta ez jakin, ondo ta ziur dakigu orain arte jayo izan diran kitanu-ijitorik ez dala izan mendi aretan. Beraz, olako gaztedi zaputz ustela arantzetan eskegiko bagendu, artzaientzak nasaitasuna, ta, iturriak iturri izango litzakez.

AGUR, BADIOLA

Ezkontzaz arantzazu'tar oso-osorik egin zana, Badiola'tar Yoseba, barri oneik agertuko diraneko Ameriketan izango da.

Erritik orren urruti ta emazte-umeengandik burua bakartuta nabaitzean biotztaupada latzak izango ditu; beragaz izango dau, bai-ta, garratzaren gozogarritzat erritarrak batez bere gaztediak agertu dautson ongi-naia ta abendaren ikutua.

Agur-jai bero-beroa izan da ba, Arantzazu'n. Fasio'ren auspoaren inguruan jolastu ziranak kulunka ta sabuka etxeratu ziran, lertuta.

ARTAUN ETA NEGUA

Artaundarrak, Gorbea inguruetako mendi-tontorrak zuriz jantzirik ikustean dardarketa nabaitzen dabe. Negu ontan baiña edurrak baiño gogorrago izotzak, leiak ikaratu dauz.

Auzuneko katurik geienak otzak il ditu (Jildorenean bi), eta an dabiltzaz erbarrenean aterik ate oillandatxuak besapean arturik katuakaz trukea egiteko.

ERIOTZ TAMALGARRIA

Eriotz guztiak tamalgarriak diralarik mingarriagoa izaten da adizkide naiz ezagun gazteen bat betirako galtzen dogunean.

Orixe bera gertu edo jazo yaku gazte gordiña izan zan Iriondo Igorre'ko semea zanagaz.

Otoz-otoko ezbearraren ayotz zorrotzak eratzi eutsan, lanean ari zala, 18 urtetako gaztetasuna ta bizia. G. B.

LANDAJUELA'TAR A.

Zaldibar

Kili-Kili'tarra naz.

Nire izenean danen letraixuak batuta idatz labur bat egitera noa:

Emen Zaldibar'en zazpi nagusi «lengusiña» gara eta baita bere ogeta bi anai-arreba.

Jaiak amaituta danok bearrari eldu bear dautsagu eta aurten gogor jokatu bear dogu gure andereiñoari lagundu ta Kili-Kili'ren arloa aurrera eroateko.

BILBAO'TAR IZASKUN

* * *

KILI-KILI'TARRAK LAN TA LAN!

Adizkide! Zaldibar'ko Kili-Kili'tarrak gara. Gure asmoa ta ekintza zer diran txartel orrek esaten dautzuzan arren, guk be zerbait esatia gura dautzugu.

Euskaldunok ba dogu izkuntza bat EUSKERA. Zoritxarrez gure aurretiko euskaldun geienak analfabetoak izan dira euren izkuntzan. Analfabetoak deitzen jako bere izkuntzan irakurten eta idazten ez dakian edozeñeri. Gu, konturatu egin gara gure aurretikoen akatz orregaz eta, ez dogu nai euren legez analfabeto izaten jarraituterik.

Gure asmoa aurrera eroateko Kili-Kili dogu laguntzaille ta maixu. Bilbo'tik bialtzen dauskun korreotik irakurten eta idazten ikasteko biar ditugun ikasgai edo lesiño danak. Guzti ori ezerbe ordainik barik, utsean. Ez ori bakarrik; orrez gaiñera ikastaro edo kursoa amaitzen dogunean, saritu egiten gaitu. Iru eguneko eskursiñoa batzueri, egun batekoa beztearí eta daneri zerbait emonaz liburuak eta abar.

Igazko, 1970'ko ikastaroan 420.000 laurleko (peseta) eralgi zituan Kili-Kili'k gure euskaldunume eta gaztetxoeri lagunduten. Berak bakarrik egiteko zama, karga aztunegia da. Zeregin? Zu esan. Lagundu gura dautsazu urtean bein zerbait emonaz?

Kili-Kili'ri lagunduaz, guri, euskaldun umeri laguntzen dauskuzu; Zaldibar'ko Kili-Kili'tarrok be bai.

ESKERRIK-ASKO!

Bermeo

Urtarrilleko 24'gnean, Arantza Santamaría ekarri genduan gure erriko ikastolan itzaldi bat emotera. Eta egia esteko, oso ederto adierazo zitun ikastola ta umeetzazko bere kezkak. Gogoz ipiñi zitun, egon giñeri adierazoteko, zelan bere ustez umeen ikasketea eta eziketa izan bear litzakezan. Gurasoak poz-pozgeratu giñan eta berriz entzuteko gogoagaz.

Irakurleen artean «Eleizalde Alkateak» entzute pizkat izango dabela ustedot. Aspaldi darabilgu alkarte au erriko kooperatibako ikastetxe bat sortu gura. Ez dago errian ikastetxe naikorik eta bear-izan aundia bai. Beste alde batetik ez dogu gurasoak ontzartzen eziketarako ikaskizunen aldatzea, eziketa ezbardin bategaz. Or dago batez bere amets onen oiñarria, eta zoragarria izango litzake. Euskalerriko uri bakoitzak olango ikastetxe bat izango ba'gendu. Jarraitu dagun ba bermeotarrok, guztiok, «Eleizalde» alkarteagaz batera asmo ori osotzen.

Arrantzaleak etxean gagozanetik illeberi igaro dira. Auxe da sasoirik lasaiena guretzako, ez gara Epailletik Gabonabitartean gelditzen, jaietan izan ezik. Gu ala be, ez dogu nai gelditze au, baizik sasoi txarra da arrantzarako, ta egundiak bere ez dabie laguntzen. Gauza badiña jazoten da legatzetako txalupakaaste guztian ezin eskuratu egualdi onik eta arrantza txar orregaitik da arrainbalio aundia eukitea.

Otsaillaren lenengo egunetan urtendabee Bermeo'tik Dakar alderuntz bidiñezko ontziak: «Alfaneque», «Alcara»: ta egurrezko bik «Lamera Punta» ta «Noche de San Juan», onein atzeneko beste batzuk dira joateko egaluzetan sasoira arte. Arrantza ona euki dagie eta itzuli arte!

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDO

Zarautz

JAUREGI'TAR KOLDOBIKA (1869-1971)

Errenderi'n jaio ta Zarautz'en, Jautarkol euskal olerkaria joan zaigu (G. B.). Apaiz ona, gizon obea, euskotar gaillurrekoa. Olerkietatik baiña ezagutu degu, Jauregi'tar Koldobika apaiz jaunarena, benetako euskera ederra. Or ikasi genezake ta ez jasi-letratuak duten eziñaren ganora merkean. Jautarkol'enak aztertu ez dituanak ezin lezake neurtu nolako utsa egiten ari dan. Ba-zun sena, baita jarioa ere; bere euskera, ordea, pitxirik zoragarriena.

Ara, ta aldi onetarako idatzi zula dirudi, ez zanerako:

Zer dek, ene biotza!, legorti eta ixil?
Ire kanta-iturria betiko ote dek il?
Olerkari nauk ire abestiei esker:
Ik kanta, nik idatzi: etzekit beste ezer.

* * *

Argatik i ixillikan, bertsorik ere ez nik.
Nola kanta iturriak iturburua illik?
Ez dagik aspaldian irrintzirik pozez,
Naigabe-deadarrik, maite-deirik ere ez...

Iturburua ixildu da. Or dabil baiña bere ots gozoa. Jaso dezagun eta Euskalerri'ko belarriak doiñu gozoz itxartu!

* * *

Arpidetua genun «Agur»'en. Pozik irakurtzen zula esan zidan, joan zan udaran. Etzula ezer eskorik ikusten, baiña, leiar lodi baten laguntzaz osorik irakurtzen zula. Mindua zegon euskera maiteari egin dioten kalteagatik. «Agur»'ek piztutzen omen zion itxaropena.

Emen gera Koldobika jauna, ta zuk maite dezun bidean aurrera goaz, euzkotarki!

ESTEBAN

Irun

AGUR, GURE «AGUR»

Bai orixe. Biotz osoz gañera, agurrik sutsuena bijuakizu. Ederki zatozkigu eta garairikan onenian agertu zera. Bagenduan zure bearra. Zatoz, bada, gure artera, euskal kutsuz gure erriak betetzera.

Illerokua zaitugu. Illerokua bakarrik. Ia laister, ordea, asteroko biurtzen zeran eta baita egunen batian eguneroko ere. Alaxe bedi.

Bienbitartean, al detan neurritxu kaxkarrian, laguntzeko asmoz betea nago. Gaur gaur, emengo berriak igorriaz beñepein. Besterik eziñ bait det.

Eta, jakiña, nere aizkide eta ezagun euskaldunei nor zaitugun agertuaz eta zure zaletasunera berotzen sayatuaz. Besterik ezean, berriz, baita xirikatuaz ere.

ILLBELTZAREN 17-GARRENA

Euskaldunen txit biotzeko jaya da. Gogora, bestela, egun ortan zenbat jai egin oi dan Euskalerri guztian. Done Anton zaarraren irudia elizetan bakarrik ez, amaikatxo ikullu ta sukalde baztarretan ikusi oi da.

Ingurumari ontan Lesakarako joera aundia da. An bait du Done onek bere baselizatxo polita. Aurten ere erruz joan da eta geyenak, naiz-ta gaur komenentzi aundia izan, eta artarako errextasunik aundienak, oiñez joan-etorria egin genduan. Artarako giroak asko lagundu zigun, batere eudi eta otzik gabe, gure ibillaldia egiteko zoriona izanak gera.

Ezagun askori bostekua estutzeko poza izan oi degu egun eder ortan, batez ere napar eta Bidasoz andiko aldekuei. Urtian beingo ori ederki etorri oi da aizkidetasunian irauteko eta alkarren berriak jakiteko

Gaztexeaguak giñanian Irun-Ondarrabitik baserritar asko Urkiola mendira joan oi zan. Otzak edo izututa, oitura ori ia galdurik dagola uste det.

ORDU BAT BAKARRA

Izateko premi gogorrean gaude aspaldi ontan. Batzuek atzeratu, bestiak gibeleratu ta banaka batzuek gelditu ere bai, badago naiko lan ze ordu dan jakiten. Uts egiteko bildurrikan gabe beiñepeiñ.

Asko poztuko giñake narraskeri auxe zuzenduko baligukete.

Dagokionari emendikantxe dei egiten diotzat.

BESTE ESKETXO BAT

Donostitikan Ondarrabira eten gabe dabiltzkigun autobusentzat da.

Zergatikan Irun sarreran bakarrik gelditzen zaizkigu, alegia, Erriko Etxe aurrian besterik ez? Len aiñ ederki erri barruan ere gelditu oi zitzaigun, baita Mendelu'n ere. Asko eskertuko genioke uts auxe zuzenduko ligukenari.

GALDUA

Gure ezagun bati giltza xorta bat, uste gabez, zillarrezko eraztunduna bera, galdu zayo. Nundik ez daki. Irun barruan dala bakarrik.

Aurkitzaillea saritua izango litzake. Ots egin beza urrutizkiñ ontara: 61.42.37.

TXANTXANGORRI

Ibaizabal aldetik

ZORNOTZA

Edozein pelotazalek dakian lez, Bizkaian pelota-toki ikastolak aspaldiz doguz Bilbo, Markina, Durango, Gernika ta abar, baiña pare ta txisteraz ikasteko ta, ez eskuzko pelota ikasteko. Ori dala bide edo, zornotzatarrak sarratu barri daben pelota toki eder apaiñean esku-pelota ikastaroak ipiñi dabez, astean birritan, aldi baten esku-pelotari ospetsua izan zan Akarregi'tar Joseba-Koldo lekeitiar jatorra irakasle dabela.

Orain arte, lerro oneek idatziten doguzan arte, bear dan bestean ondo eralduta eztaukelako edo, ogei ta bi ikasle baiño eztabez, esan dogunez, astean birritan ikastaroak egiñik. Ikasle orrek geienbat arratiarrak eta tabiratarrak izanik, eta gure lurraldeko erri askotakoak aurkitzen dira tartian. Ia-ba zornotzatarrak, geure joko, kirol garbi kementsu ori bear dan goralpena emoten badautsegu.

BASAURI

Pozgarria zan igaro dogun Urtarrilla'n Bilbo'ko egunkarietan irakurri genduan iragarki txalogarria, geiago be nondik etorren jakitean; oraingo Udal batetik, berau zan beren idazpurua: «Premio Basauri» de Estudios Vascos: 100.000,—pesetas». Sari ori Basauri'ko Udalak eraldua da Bilbo'ko «Ateneo» bazkunaren laguntzaz, eta, beratan ibilliko diran gaiak, derrigor, eusko jakintzan billakun lanak izango dira, euskeraz naiz erderaz, gazteleraz, idatzita.


Jakintza-lan onen egitura, sei eratakoa izan litzake (Edestia, Elertia, Zarkin-izti (Arqueologia). Giza-jakite (Antropologia), Ertia ta Eskubideak) urterokoa izango da sari ori ta, Euskalerria'ren Edestiatzaz aurtengoa (Erriketa, Txindiarazo, Gizabide ta abar).

Sari ortan nai daben guztiak alde artu leitzake ta, esan dogunez, lanak euskeraz edo gazteleraz idatzita aurkeztu leikez.

Asieran esan dogunez, txalogarria da oneitariko sari bat Udal baten bitartez iragarrita ikustea, ez gagozalako bearbada, oituta aspaldiko urteotan oneitariko gaiak ikusten. Ia Euskalerri'ko beste Udalak aintzakotzat artuten daben Basauri'koan euskojakintzaz eraldu dabenataz, ordua be bada-ta.

GALDAKANO

Azkenengo urteotan erri onek izan daben ugaritzari aurre emoteko, bertoko Udalak egin daituzan eginkundeak, obrak, bearrekoak eta andiak izan dira, egia esan bear, erriko bidean apaiketak, ikastola barriak, onen artian Bigarren mallako Ikastetxea ta abar, baiña, orreikaz bakarrik eztabe geratu gura



Meza bat Atxarte'n

ta, laster egiten asiko dira Jolaseta barri bat (beste alderdi baten esango da zerbait argiago onetaz) eta bai atzeden baratza batbe, parkea esan nai dogu, erriaren erdierdian, Plazako-etxe antziñako izenaz ezagutzen dan inguruan; bitxabal da Ibaizabal ibaiaren bitartean. Eginkunde orretarako, bost milloi lauerleko ipiñita ei-daukoz Udalak, lenengotan da, gero ikusi geiago bearko bada. Eztago salantzarik gauza apaiña izango dala aspaldiz beren ametsian galdakoatarrak aurkitzen diran baratz ori.

Esan doguzan eginkizun orreek, eztago esan bearrik, egokiak eta txalogarriak dirala, baiña, ondo egongo litzake Udalan aldetik eusko-jakintzaz zerbait geiago ikusiko baigenduke, gitxienez be Basauri'koa iruditzat artuta.

ABADIANO

Orain urte bat Abadiño'ko Atxarte'n Untzilla ta Aitz-Txiki'ren bitarteko aitz muztur bat igoten ebiltzala jausi ta erail zan Mintegi'tar Joseba tabiratar amazortzi urteko mendigoizale gaztea ta, leentxuago beste eibartar gazte mendigoizale bat be bai, ez gara beren izenaz gogoratzen, eta orreen omenez, gogo-aldez meza bat ospatu zan Otsalla'n 7'gn. inguru artan bertan, eundekak edo millaka mendigoizale bertaratuaz, geiena gaztedia, itzalik andienaz. Jaupa ori, meza ori Durango'ko Tabira mendigoizale taldeak eta Eibar'ko C. D. Eibar'ek eralduta egoan da, ondo gertuta... baiña dana erderaz, gazteleraz, otoitzak, abestiak eta guzti azkenengo abestitxu bat izan ezik. Eibartarr da tabiratarrak! zergaitik ez euskeraz meza ori bertan bildu zan mendigoizaletza eunetik larogei ta amar euskotarra baizan da geienak euskaldunak? Euskalerri'ko seme-alabarik kementsu ta zintzoenak izan bear daben eusko mendigoizaleak izango ete dira geure aitz-arte ta mendietan gaztelera dagoan baiño geiago zabalduko dabenak?

Ez adizkideak, alderdi ortako euskal izen txukunak ez daigun dagozan baiño loiago egin.

Beste gazte asko legez, Lemona'tik be gazte batzuk joan ziran gorago esan dogun meza ortara ta, orreetariko batek izan eban zori txarra, jaupa amaitu ondoren etxerantza urtetan ebenian, Atxarte inguruan bideak apainduten ebillen «escabadora» (lurkenzkin) batek beren berebil da guzti zapalduta il eben, Betzuen'tar Xabier, mutil euskaltzale jatorra. Urrengo egunian, Otsalla'n 8'gn. ospatu ziran beren illetak Lemona'ko txadon nagusian, guztia notiñez beterik dala. Goian Bego ta beren sendikoak artu beie gure agur samiñena AGUR'en bitartez.

BASA-JAUN

Usansolo

IKASTOLAK

Ba'dago euskera egarria gure artean, baiña ondo zuzendu barik.

Aurrerapen batzuk, izan dira aspaldi onetan. Lenengo, abeslari arteko talde batek, euskera ikasi gurean, ikasketa bi daukaguz aste barruan. Ordu bikoa bakoitza. Gero, aurtxoen Kristau Bidea euskeraz; ta au dala ta, onen ondoren, umetxoak irakurten eta idazten ikasi dagien, ikasketa bat astean, bariku arratsaldeko zazpiretan.

Bai ta, igaro dan illean esan genduan lez, Kili-Kili'k bere, lan ederra egingo dau elburu oneitan.

Baiña IKASTOLA bat, bearrezkoa dogu, aurtxoentzat.

Alkartu ta irabazi.

Zelan alkartu! Non laguntasuna aurkitu! Ori ezkutukia. Or dago ba, untzea. Antxiña esan neban lez, buruerak, eritxi guztiak entzun bearko dira, norbaitek zoragarrikzo buruera bat euki lei ta. Ta buruera orreik, eritxi ospetsuak, nora bialdu!

Gazte batzarlekuko buru, Imanol Atutxa dogu; ori litzake bide bat.

Pedro Jose Eztibez'ek bere, lo asko galdu ditu ikastola arazoetan, ta ez litzake txarto egongo gure buruerak, beragana biurtutzea. Emaldiñeneko sendia bere, beti izan da artega, eragozpen oneitan ta zuen eritxiak poz pozik artuko dabezela uste dot.

Asko ta asko bere, arduratsu izango dira, baiña nork danon izenak ezagutu... Eta azkenengo orduan, besterik ez ba'dago, gure sendia bere emen dago.

Danok alkartuta, ez ete dogu ezer egingo! Ez da erreza izango lenengo oinkadak emotea, baiña ori dala ta, ez dago zer egiñik! Asiera emoteko danok dakigu asko bear dala, baiña gure Erriaren euskera egarria ikusiaz, gure auzonetakoak ez diranak bere, lagunduko dauskue. Euskaldunen biotza oso samurra da, ta ez gara bakarrik izango Ala oker nago!

Illonetan izan diran barriak, ikastola arazoetan, nere urrengo idazlantxoan agertuko dodaz.

AGATE DEUNA

Gure Erria beti abestizale izan da bere, Agate deunaren besperan bere aldeko abestiak entzun ondoren, sorgintasun bat lez, gure etxeetan, gure biotzetan sartzen da, ta gure sakeleko diruak eroan. Iru talde entzun genduzan gure auzonetan, ta danok euren saria aurkitu eben.

Jakiña. Geure umetxoen ibilli aldi baterako dala ta, Usansolo'ko taldea izan zan txapeldun gure artean, dirua zenbatutzeko orduan. Baiña ez uste, orregaitik bakarrik zala, ez.

Ederto antolatuta egoan abeslari taldea, ta ederto laztandu ebazan gure belarriak.

Zorionak Julen. Lan ederra egin dozu!

Jarraitu daigun, lan asko dago ta abesti arazoetan.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Zeanuri

GAZTEEN ITZITASUNA

Ni gaztea naz.

Denpora asko ez dala, gure errietako gazteak, antxiñako jantziak jantzita, Santa Ageda egunean, etxerik-etxe, Santa Ageda'ren kantak kantatuaz, dirua edo beste edozer pillatuten eben.

Baiña oingo denporetan olangorik ez dago. Guk gurago dogu Karina'ren edo Raphael'en kantak entzun eta jantzan egin plaza-basterrean orrelan etxerik-etxe kantetan joan baiño.

Oingo gazteak geroago ta faltzoago goaz gauza guztietan, baita geure onerako izanda be.

Santa Ageda'ren egunean kantetan joanda beste, guk irabazi geinke geure lagun artean teatro edo komedi batzuk eginda, gero ezkursiñoa egin, edo ikastolako zorrak ordaindu. Baiña gutzako errezago da gurasoai dirua eskatutea geure bear izenetarako, geuk ezer egin barik.

Nik auxe diñot: Gurasoai laguntzeko ta geu obeto bizitzeko geu alegindu gaitezen.

JESUS ASTONDOA'K

Abadiano

SANBLASAK

Aurtengo San Blas jaietan zerbait egiten alegindu gara gazteok. Erriko gazteak lez, erriagaitik.

Illan bian, Kandelarioz asi ziran jaiak, illuntzean erromeria Trabaku'ren bitartez. Gazteak ibilli giñan dantzan.

Iruan, San Blas egunean bertan. meza nagusia amaiketan, bertan, parroko jaun barriak asiera emon eutsan itzaldi eder bategaz. Meza ostean, abere eta makiñen periak izan genduzan. Arratsaldean eta gabean, idi-probak. Illuntzean erromeria «Egan» orkestaren bitartez. Onela bete zan San Blas eguna; otz aundia baiña jenteak ez eukan otzaren bildurrik. Ainbat jente etorri zan San Blas'eri urteroko sartu-urtena egiten, baserritarrak batez bere.

Lauan, «Sanblas txiki» egunean, goizean makiña erakusketea. Arratsaldean eta gabean idi-probak, ta aurreko egunean lez «Egan»'en laguntzagaz erromeria, baita inguruko jente asko be bertan.

Bostean, Santa Ageda egunean, illuntziko erromeria Trabaku'ren laguntzagaz.

Seian, kosiñeren eguna zala-ta, arratsaldeko seirak inguruan asi giñan gazteok kalezkale, Arratia'ko auspolari, albokari eta pandero jotzailleak lagun, abesten eta dantzan. Saspiretan, gazteen aretoan lukainka jana, a zan jan bearra! andik, barriz plazara alai eta zaratatsu, ta an, eten arte dantzan. Amarretan amaitu gendun sukaldarien egun ori, gazteok danok pozik eta ederto.

Saspian, Ziklo-kros txapelketea, errian eta auzoan ia lekurik ez. Egun onetan Urtain etorri jakun, bere idi pareagaz. Ogeita amazortzi untza egin eutseezan. Urtain'en ustez geiago egin ebiela, baiña...! urrengoan izango da. Emen euki gendun egun guztian, gabeko amabiak inguruan bere automibil ederragaz joan zan.

Amalauan, bigarren igandea lez, goizean amarretan, Durango, Elorrio ta bertoko txistularien kalejira, ta meza nagusiaren ostean erriko zortzi ezpatadantzari talde txistulariak aurretik, kalerik-kale probalekura, or dantzan egiteko, ta bertan aurrezku-atzezkulari onenen txapelketa; Agirre'tar Luis M. irabazi eban. Gero, bertsolariak, oso ederto, ta or amaitu gendun goiza.

Arratsaldean, abeslariak, ainbat abesti ederregaz; ondoren Etxebarria'ko antzerki taldea, polito egin eban; abeslariak berriz, ta gero bertsolariak. Euskal giro eder onetan amaitu ziran gure Sanblasak. Ez gendun uste izan ainbeste jente etorriko zanik.

ITZIAR

Berriz

Esatekorik asko dogu AGUR'en irakurleentzat.


Urtarrillaren 30'ean Bilbo'ko Gotzain jaunak ikustaldi bat egin euskun. Atsegiñez entzun geutsan esan euskun guztia.

Urtarrillaren 31'ean, «Gazteen-eguna» ospatu zan. Goizeko 10'etan, irurogei bat gazte batu ziran. Lenengo, umeak urten ziran Andikona'ra, Meza entzutera; an naikoa jolas eginda gero, alkar-arteko bazkaria izan eben. Guztiak pozez beterik igaro eben egun guztia.

Beste errietan lez, geure errian be andikiro ospatu zan Agate Deunaren eguna; iru taldek ekin eutsen eten bagarik kantuari: egunez, Ikastolako umetxoak eta erriko eskolakoak, eta gabez, neska-mutillak. Zein zan onein asmoa? Berriz'ko Ikastoleak ez dauko bear dan beste laguntasunik, Ikastolako umetxoen gurasoak asko arduratuarren be. Orregaitik, geuk be, gazteok, geure laguntasuntxoa eskiñi bear dautsegu, guztiona da-ta. Ori aurrean izanik, «Agate Deuna» abesten ibilli ziran gazteak, Ikastolarako emon eben egun aretan batu eben dirua. Oso ondo ikusi da egitada ori Berriz guztian. Erriak be oso ondo erantzun eban, bere eskuzabaltasuna agerturik. Beraz, AGUR aldizkari onen bidez, guztion eskerrik gartsuenak, batez be ain gogotsu arduratu zareen gazteoi. Aurera beti!

KARMELE

AGIRRE'TARRAI AGUR BIOTZETIKOAK



Bai dirala entzute aundikoak Agirre'tar onek. Ikusi ENCLOPEDIA GENERAL DEL PAIS VASCO. Cuerpo A. *DICCIONARIO. Izen bakar ori daramatenak aztertzen ba'dituzu eun eta amarretik gora aurkituko dituzu; izen ori beste batekin naastuta daukatenak* (Agirregabiria *esate baterako) geitzen ba'dizkiezute, berreunetik gora. Eta ENCICLOPEDIA berorixetan* Cuerpo C. *BIBLIOGRAFIA aztertzen ba'dezu larogeitik gora dira izen orrekin idazten dabiltzanak edo ibilli diranak. Egiz izen ospetsua gure artean.*

Nik orain nere buruan daukadan Agirre-sendia ere ben-benetan agurgarri ta goralgarria da. Senaremazteak beti bizi izan dira elkar-maitetasunean eta beren bioen esku-lanakaz lasai bizi ere. Goiko Jaunak amar umekin onetsi ditu: zazpi mutil eta iru neskatil. Neskatillak ezin politagoak, mutillak ezin argiagoak. Guziak (guraso-seme-alaboak) euskeltzale zintzo ta sutsuak. Gotzon, Josu ta Txomin mutilzarrak dira, eta Iziartxo neskazar. Onek laurok atzerrian bizi izan dira: Iziartxo Paris'en eta iru mutillok England'an Gotzon eta Txomin Oxford'en, Josu Cambrisge'n. Josu onek Cambridge'n bere izena aldatu bear izan zun, England'an eta Parantze'n ere izen ori erabiltzea Jaunari lotsea galtzea dala uste dute-ta. Oporraldeetan eta udean guziok beren gurasoen etxean elkartzen ziran. Antxiñako jauregi aundia zan, benetan zabal ta ederra, ogei ta geiago lo-gela zituana. Oxford eta Cambridge'n ikasi zuenak THE TIMES eta THE GUARDIAN irakurtzen zuten, Iziartxok parentzeraz polito agertzen dan ELLE irakurtzen zuan. Baña beren artean beti euskeraz, euskera garbi ta utsez egiten zuten. Atzerritarrak beren etxera jotzen zutenean, bai, erderaz egiten zuten naiz engalanderaz, naiz parantzeraz naiz españeraz azikera onak ezkatzen zioten bezela, baña jakin erazoten zioten beren izkerea euzkerea zala. Etxe onek AGARRE zun izena. Len izendatu detan ENCICLOPEDIA GENERAL'ean ikusi zenezake nun dauden Agarreizendun basetxe batzuk; bai da an izentatzen ez dan beste bat ere. Bizkaya'ko Nabarniz'en, ango Elejalde'ra bidebarriz zuazala zeure ezkerrean; baña ez da au ere nik orain buruan daukadana.

Ni ere atzerrian, eta ain zuzen ere England'an, luzerotxu bizi izan naizela-ta, Agirre'tar onekin elkar-izketatxo bat eukiteko nairik nengoan. Alakorenbaten, ba, THE TIMES eta THE GUARDIAN'ek Burgos'ko auzitzaz zer esaten zuten jakin nai nuala-ta eurakana jo nuan, urrutizkiñez lenago berai jakin erazoz. Berak beren azikera on baño obea agertuz, berakin bazkaltzera joateko eskatu zidaten.

Beren atera eldu ta txirriña jo baño len Txomin aurreratu zitzaidan eta Oxford'en «DON» edo irakasleak erabiltzen duten gain-jantziaz jantzita agertu ere. Nik England'ako igarobidea neukala bai-zekian eta England'ako era ta bideak naiko nituala uste zuan. Agurtu ere engelanderaz agurtu ninduan; nik, baña, euskeraz erantzun nion eta giza-legez Britaineko agintzapean bizi naizan arren, gogoz eta asmoz eta biotzez euzkotar zintzo ta utza nintzala agerterazi nion. Berak egin zun barre sakonak, bere biotzaren poza agerterazo zidan eta berealaxe euskerara jo zuan.

Ez zan oindiño jatordua eta England'an oitura dan bezela, jatokira joan baño len beste areto zabal ta eguzkitsu batera eraman ninduen bazkal-aurrez edaritxu batzukaz elkar agurtu ta poztutzeko.

Ondo etorria gure etxera, esan zidan etxeko jaunak eta ezeri nai dezun jarlekuan. Etxe au zeurea bailitzaken egon emen. Azketsi nere emaztea emen ez egotea, etxeko-andra on bat bezela sukaldean zeregintsu dabil ordu onetan ba-ta.

—E'kerrik asko, Agirre jauna, erantzun nion. Zure seme oneri esan dioten bezela, ni ere, naiz-ta giza-legez Briteindarra izan, biotzez euzkotarra naiz eta euzkotarren bideak maita ditut. Atsegin zait zuen bidea.

Berealaxe aretoko atea edegi zan eta sei morrosko gazte agertu ziran. Beren arpegiak erakusten zuten zoriontsu ta osasuntsu bizi zirala.

—Onek dira nire semeak, esan zuan Agirre jaunak. Au, zuri atean itxaroten egon dana Txomin da eta Oxford'en ikastaroak egiña, besteok Imanol, Aitor, Gotzon, Josu, Andoni ta Koldo. Mutil bakotxaren izena ematen zidanean, mutil bakotxak nere eskua estutzen zuan eta beren buruak puzka bat makurtuz beren itzal ona agertu.

—Onek, nire mutillok engelanderea ere bai dakite gero; —jarraitu zun etxeko-ajunak.

—Bai, ba-dakit, erantzun nion eta etorri be alde batetik orregaitik etorri naiz; baña Txomin'i esan dioten bezela euskerea det maiteago ta euskeraz egin nai det.

—Ederki! erantzun zun berak. Zer edan nai dezu? Ba-daukat emen Ezkozia'ko Whiskey eta Parantze'ko Cognac ere... ala Naparroa'ko ardo zuria nayago ote?

—Zer esanik ere ez, Agirre jauna. Naparroa'ko ardo zuria nayago det.

—Edan dezagun ba.

Jaso nuan nere edontzia berai osasun eta zoriona nai izateko. Berealaxe zortzi edontzi jasota ikusi nituan nere inguruan. Gizon bakoitza zutunik neri osasuna ta zoriona nai izateko ta zortzirok batera, nik lendik ezagutzen ez nuan abesti polit au abestu zidaten:

Aitor'en izkuntza zarra
nai degu zabaldu
... ...
Euskaldunak euskeraz
Itz egin bear degu.

Nire biotzaren poza, alako abesti estitsua entzun nuanean! Ijutika zegon nere barru guztia. Begiak ere bustita neuzkan. Abestia bukatu ta edontziak utsitu zituatenean ni ere zutundu nintzan eta al nuan eraz: Eskarrik asko, eskarrik asko, Agirre jauna ta Agirre'tar guztiok, esan nuan.

—Ez da zergaitik, izan zan Agirre jaunaren erantzuna eta, arren, ez eman niri jaun *izen ori. Ni Iñaki naiz eta euskeldunen artean eta batez ere adizkideen artean ez det beste izenik nai nere izen kristarra baizik. Ori bai, ni Agirre'tarra naiz baña ni bizi naizan etxe onek AGARRE-izena dulako ni Agarrekoa naiz. Eta ni Agarrekoa naizen bezela nire seme-alaba ezkonduak ere berak bizi diran tokikoak dira naiz ta guztiak Agirre'tarrak izan. Orrela, seme bat Illuntzepekoa da, beste bat Arrolapekoa, irugarrena Etxezarrekoa ta laugarrena Oizandikoa. Nire alaba bi ezkonduak dira; bata irlandarra dan Mc Elroy batekin eta bestea Dupont deritxon parantzetar batekin. Onei beren senarren abizena jarri erazoten diote, ta onek berak bizi diran oiturai jarraituz Mc Elroy'RENA ta Dupont'ENA dira, baña onek ere beti Agirre'tarrak nai ta bata orain Irlanda'koa izan eta bestea Bordell edo Bordeaux'koa*

—Iñaki, zuzen be zuzen zaudela uste det; baña nola agertzen dezute zuek zuen sendi-barruan dezuten zeingitasun edo ez-berdintasuna?

—Ba, errez ere errez. Ni Agirre'tar Iñaki naiz eta nire semeak Agirre'tar Imanol, Aitor, Gotzon, Andoni, Koldo, Josu ta Txomin. Ikusten dezun bezela ni ez naiz gazte, nik larogei urte ongi beteta ditut. Gazte nintzala Campion'en Elizti edo Gramatika ikasi nuan eta an irakurri nuan: »—Arr significa varón, macho. Sirve para formar los nombres que indican naturaleza o vecindad. Es el componente propio del étnico...». *Ez dakit berauxe ez ote zan Larramendi ospetsuak buruan zeukana bere IMPOSIBLE VENCIDO'n (Adverbios correspondientes al UNDE) idatzi zuanean:* Donostia'ko seme bat, Donibaneko edertasuna, Andoaingo portitzak; *baña gero «jayotz-sustraya agertzen du* - arra *ta* - tarra'*kaz:* vizcaitarra, españarra, gaztelarra. «*Dana-dala - Iñaki jaunak jarraitu zun - oin irurogeta amar urte ni 12 urteko mutikotxua nintzan, bai, eta nire aita zanak beti esaten zidan bera Agirre'tar José Miguel*



zala, naiz ta orduan beti erderaz Jose Miguel de Agirre idatzi. De *edo-tar orri gogor eusten zion berak eta nire ugutza-agirian argi ta garbi orrela idatzita agertzen da. Tamalez orduan gure apaiz eta txaunburuak ez zuten ugutza-agiririk euskeraz idazten, guztia egiten zan erderaz.*

—Iñaki, egizko irakasle batek bezela itz egiten dezu eta abo zabalik zuri entzuten egon nazaizu; baña zer ote-diote onek zure seme argiok, batez ere, onek England'an ikasten ta irakasten ibilli diranok?

—Guk (erantzun zun Gotzon'ek) guk gure aitaren itzak ontzat artzen ditugu. Berak gure umetaldian euskereatzazko maitetasuna biotzean sartu zigun, bai, ta England'an ere alegiñak egin ditugu maitetasun ori bizirik gordetzeko ta beste batzukana zabaltzeko ere. Ni Oxford'en Bodleyan Library'ra joaten nintzan; nire anai Txomin'ek Blackwell'en idaztitegira joatea nayago ixaten zun. Batzutan iru anayok London'en elkarrekin batzen giñan ta British Museum naiz Foley'ren idaztitegira joan. Ez det iñoiz aiztuko Kimro edo Galestarrakandik bazter oyetan ikasi nuana. Bai-eta Turki-tarrak ere bide berdiña irakatsi ziguten. Emen daukat ondiño oin 30 urte-edo dirala izparringi baten irakurri ta berridatzi nuana. «The object of the KURULTAY is to remove from the Turkish language terms of Foreing origin, especially Persian and Arabic, and to find substitudes derived from pure Turkish sources». *Euskeralduta auxe da orrek esan nai duna: «KURULTAY'ren asmo ta elburua honako da: Turkia'ko izkerea atzerritar diran itz guztietatik garbitu, batez ere Persi naiz Arabi'ko izkeretatik artutakoak ba'dira, eta itz turkitarrak Turki'ko izkerearen sustrayakaz eraldu ta biribildu». Nik an ikusi ta ikasi nuanez Kimru ta Turki'ko gaztedia bide garbitzalle orretaz dabil». Eta aurrerakada aundia egiten dute.*

—Eskarrik asko, Gotzon, esan nion. Ez dakizu zeinbat poztuten naizen zuri Oxford'en moldadutako jakitun bati ori entzuteaz. Galderatxu bat egin nai dizut, baña, zuk ain egokiro erabilli dezun gogo orretzaz. Zuk Kimru ta Turki'ko «gaztediak» izendatu dituzu. Ezin nezake ukatu gaztedi-itz on euskerazko dala, baña ez ote dezu uste gaztedi baino egokiago izango litzakela «gazteri» esatea?

—Nire eretxiz-jarraitu zun Gotzon'ek - gazteria zuzen dago.

—Di atzizki ori asko be asko erabiltzen da gure euskalerrietan. Ikusi Lizardi, Lertxundi, Sagarduy, Garagardi ta abar. Moltzo, bazkun edo pillo ikusten arrerazten digu. Beraz gazte-moltzo edo gazte-bazkun «gaztedi» esan dezakegu.

—Asketsi, Gotzon, baña nik ez det ondiño argi ikusten zuzendasun ori. Zuk eman dituzun adibide guztietan, itz orrek TOKI esan nai du. Orregatik Sukarrietan il zan gure irakasle maiteak gu euzkotarrok bizi geran TOKI oneri berak eman zion izena berria eman zion. Gure Aberriaren izen ori ezin obeto, eralduta dagola deritzat, naiz ta gaurko idazle batzuk ez dutela ontzat artu nai; eta orren antzeko «gaztedi» ere zuzen egongo litzake gazteak batzen diran TOKI'ari izen ori emango ba'genio; baita gazte-moltzoai tokiz baño asmoz, naiz erabiltzen dituen elburuetaz elkartuta dabiltzan gazte-mutil edo gazte-pilloai, nik «gazteria» - izena jarriko nioteke.

—Ez deritzat oker zuk diozuna. Orrek an England'an «compromise» esaten degun eta zuk ongi ezagutzen dezun bidearen antza du. Oingoz beintzat ontzat artzen det zuk ematen didazun azalpen on. Gazteak elkarrekin batzen diran tokiari, antxiñako Bilbo'n geukan «Euzko-gaztedia» lakuai gaztedi esango diegu, eta gaur ain askar eta ausartik dabiltzan gazte-taldeai «gazteri».

—Tori, Gotzon, nire eskua. Oxford'en gaudenak dirudi. Baña ba-daukat oindio beste galderatxu bi zutzako. Zuk emen dizkidazun Lizardi, Lertxundi ta orrelakoen antzeko bat ikusi det nun edo an Bagodi. Nik nere umearoan beti Pagodi *ta* pagar *entzuten nituan. Zer deretxazu gai ontzaz?*

—Nire eretxiz gai bi dauzkagu emen. Lenengoia Bago *ala* Pago *izan bear ote dan eta bigarrenia itz ori geure geurea ote dan ala laterazko fagustik artutakoa.*

Nik dakidanez Pago *erabiltzen da Bizkai'n Gipuzkoa osoan, bai eta Naparroa bietan ere. Bago Lapurdi'n eta Baztan, Salazar eta Lezaka'n bakarrik. Beraz askoz be geiagok erabiltzen dute Pago-izena. Bigarren gaitzaz gure mendietan pago ederrak zeuden gure mutillak Italia'ra juan baño lenagoiti eta erromatarrak onantz etorri baño len. Beraz ez gaitik ez esan Italiarrak gugandik artu zutela itz ori. Nik ez ditut maita Novia de Salcedo'k eman zizkigun ETIMOLOGIAK; baña gutxiago Griera jaunak bere VOCABULARIO VASCO'n zabaldu dituenak. Orrelako asmakeriak zabaltzeko eskubiderik ez diogu iñortxori eman bear.*

Onela giñarduala, ANDONE etxeko andre agertu zaigun bere eskuak altzopean zitula. Gizonak: Zer darabiltzute or amaibako autukaldietan? Etorri guztiok bazkaria gertuta daukazute ba-ta. Eta nigaz aurreratuz eta eskuan mun egiñez: Ongi etorria gugan esan zidan. Eta etxeko jaunak: «Guazen jatokira. Bazkal-ostez edo beste egun baten ekingo dautsa euskel-azterketa oneri». Eta gizonok bazkaltzera juan giñan. Ez det esango nolako bazkari edem jarrita aurkitu genuan. Agirre'tarrak adizkide ematen zekien bazkari gozo ta pozkillea.

Agirre'tarrai agur biotzkorrak.

URRUTIA'TAR GOTZON
MIREN-BIOTZEKO SEME

ZUBIGINTZAN

Bilbo'tik Beobia bitarteko autobidea egiten lan da lan diardue. Emen zubia, an zubia, aruntzago zubia. Zubitan egin bearko dabe, zubitan...!

Zubiak bearrezko dira, izan be, bidegintzan. Ibaietako ertzak alkartzeko. Sakon-une ta arroak bardintzeko. Leorrean goi-bealdeak nun-nai daukaguz eta. Ta orreik oztopo izan ibilbidearentzat. Ortik dator lur azala lautu bearra.

Ba da, baiña, bestelako zubigintzarik. Giza-zubigintza esan dakioke. Gizonak, eta errialdeak be bai, askotarikoak doguz. Jatorriz eta izakeraz, irizpidez eta pentsakeraz, jakitez eta oituraz, giza-maillaz eta erlijioz, ondasunez eta ogibidez. Ori bai, sakonean eta gunean kideko gara guztiok.

Giza-bereizgarriok gorabera, zelan bizi onez eta anaikiro? Zer egin lurgain onetako gure egonaldi au baketsua, bata-bestearentzat eroakorra ta alik erosoena izan dakigun? Or untzea!

Geienetan okerreko bidea artu oi dogu, zoritxarrez. Ni zu baiño altsuago ta aberastsago nazala? Besterik barik, zu nire menpeko izango zara ta kito. Ortxe, azpian ixil-ixilik neuri eder egiten.

Bidebageko jokaera! Nun-naiko ta noiz-naiko bizi legea, zorigaiztoko indarkeria ta zapalkuntza! Ez arrazoiaren indarrez, indarraren arrazoiz baiño. Gizaeskubideak, alkarrizketa, ta onango itz polit-labanak aitatu, ori bai egingo dogu. Ta txitean-pitean miiñean erabilli be bai. Ta egiñak? Egiñak gogorkeriz, bidebagekeriz eta olako KERIZ kutsutuak.

«Gizon dana neure anaia dot», esana dau oraintsu VI'garren Paulo Aita Santuak. Auxe da, izan be, asi barri dogun urterako bizilagun guztioi emon dauskun elburua. Ta berbaldi orretan berton onelango jakingarriak datorkiguz: «Gizon bakoitza bere anaitzat arturik gizaldi barriak ezitzeari lotu dakionak, orrexek egiten dau ziur-ziur bakegintzarako zuzenbidezko oiñarriak ipiñi ta ipiñi. Gizadi osoari begira gakiozala, barriz, anaitasuna agirian irakatsi oi dauanak gerorako mundugintzan diardu. Gorrotoa ta burrukako griña alde batera itxita, erri-arazoak gizartearen onerako erabiltzen dauzanak guztion ona lortu nai dau. Edozein giza-izakera, arraza ta errialdeen gaindi, gizon dana NEURE antzeko ta kideko dala autor badagit, orduantxe noa alderdikeri, ezin-ikusi, azpikeri ta asarrebide diran guztien aurka, gizarteko bizikera lauturik, lanaro egoki-egokia ipinten dodala».

Ona gizonen eta errialdeen arterako zubigintza jatorra! Bearrezko, gaiñera, kristau deritxana egiazko kristau izan daiten. Beste edozelango jokabidea ipuin utsa dogu, griña gaiztoen indarkeria, erabageko norberekeria. Ta gaur egun ainbeste ta ainbeste izan Kristoren eta Eban-jelioaren izenean indarkeri iguingarri ori darabillenak.

* * *

Gizona - ots, edonor, gizakume naiz emakume - NOR izateak egiten dau aundi, ez ZEIN izateak. Ta NOR izate ori ez dautso jakinduriak emoten. Ez aberaskuntzak, ez gizarte-maillak, ez ogibideak. Jantzi ta apaindu ori, ba dagikee zerbait. Beti izango, alan be, azaleko apainduriak, NOR izatea bere mamiñean ikutu barik izten dabenak.

NOR izate edo NOR-TASUN ori ez da alkargo edo erakunde baten emoia. Aruntzago dagoan iturriari darion ur garden-gardena dozu. Urrunagoko jatorrian sorturik, berez-berez eta zuzen-zuzen datorkizun bitxia. Edonungo ta edozein eratako alkartea baiño leenagokoa. Ta ezin ukatu daiteke, iñortxok be ezin zapaldu bidegabekeria egin barik. Ez da gizona Laterriarentzat (Estaduarentzat), Laterria gizonarentzat baiño. Ezta Elizarentzat be, bestetara baiño. Gizona dogu goi-goian, erpin erpiñean. Beste zer-nai gizonaren eusgarri, bizigarri, indargarri, apaingarri, osagarri.

Paris'ko Gotzainburu dan Marty kardenalaren berbok datorkidaz burura: «Enaz ezkerrekoa, ez eskumakoa, ez erdikoa, ez bekoa, gutxiago goikoa. Munduagaz bat eginda bizi gura dot, iñoiz be ez arengandik urrun, gizon danaren ondo-ondoan, neure anaia dodanaren albo-alboan.

PUXANA

AGVR

II URTEA
II ZENBAKIA

ILLEROKOA
1971 - EPAILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

BAKARRIK

Bakarrik, nun nabil
gaubeko illunean
nigarrak ixildu ezin.
Ametsa izan dot begietan
biotza kolpatu da odoletan.

ESTITXU

BERBIZTU...

Negua igaro da.

Atzak otzak arrakalatu zitun. Zugatzak orri barik, ilda lez, geratu jakuzen. Mendigaiñetan baskatzen izan diran ardiak, otzez, dar-dar, jatsi dira ibarretara. Edurtzak eta lei-aldi gogorrak kikildu eben izadia. Gau luzeak, egun laburrak, eguzkia makal euria ugari... itunasuna... gaisoa... eriotzea.

Udabarria dator.

Izakien barruan ziran indar ixillak agertzen asi dira. Zugatz billuziak orri berriz jazten asi dira. Ibarretako ardi zuriak, artzaiñak aurretik, mendi tontorretara doaz; mendi ta zelaiak zugatz eta landarak orlegiz jantzi dira; baso ta landak lorez margotu dira; txoriak abesti alaiz itzartuten gaitue; edurrak eta lei-aldiak joan dira; egunak luzeak eta urgiak doguz; eguzkia dizdiratsu jatorra... alaitasuna... osasuna... izadiaren berbizkundea.

* * *

Nekaldia igaro da.

Giza-semea, gizona, lotu eben. Arantzaz, zigorkadaz, untze gogorrez zauritu eben. Odol gorriz jantzita gurutze lotsagarrian josi eben. Burua makurtuta, Aitari baietza emonez, bere bizia galdu eban. Samintasuna... bakartadea... illuna. Bariku guren da.

Berbizkundea dator.

Igande-goiz alai bat. Jantzi zuriak, dizdiratzalleak. Edertasuna. Bakea. Bere barruko indarrez, Aitaren seme maiteeta zalako, onena zalako, eriotzea azpiratu ta garaitzaille agertu zan Gaizkazaillea. Igaro ziran nekeak, igaro zan itun-aldia, joan ziran negar-erriko gizon zarraren erostak. Etorri da ludi barria, gizarte barria, jaunaren berbizkundea.

* * *

Erriaren makal-aldia igaro da.


Euskaldunak euskal-kutsua galduez zoiazan. Euskera egiten lotsatu egiten ziran. Euskal-liburuak eta aldizkariak gitxi ziran. Erdeldunak inguratu ginduezan eta euren izkuntza ta izaerea gure artean sartuez joian. Erderea izparringietan, irratietan, telebiziñoan, liburuetan... dana erderea, dana arrotza... Erria, barriz, il zorian, arnasa barik, baserritxuetara baztertuta eta areitan bere arerioz inguratuta, lotsatuta.

Sendo-aldia dator.

Erriaren barru-barruan bizia egoan eta bizi ori atera zan, agertu zan. Erriko semeak arduratuez doaz, amaren bizia maite dabe eta maite-min ori agertu da. Erri-zaleak alkartzen dira, liburuak eta aldizkariak ugaritu dira. Inguruko erdeldunak lotsa geiagoz begiratzen gaitue, ikastolak nunai ta lorategiak lez agertu dira, abedetze-ekiñaldiak ugaritu dira, bizi barriak berarekin dakarren indarrez ezbaiak sortu dira, baiña erria bizi da, erriak bere bizia agertu dau. Makal-aldia joan da, sendo-aldia etorri da. Eriotz-aldia joan da, bizi aldia agertu da. Erriaren eguna dator, berbizkundeegunaren dator: alaitu gaitezen, indartu gaitzen, alkartu gaitezen... egin daigun erriaren berbizkundea.

AGVR

ESTITXU



Beskoitze'n (Iparraldeko Euskalerrian), bagillaren 4'an jaio zan.

Bere aizta ta nebakaz abesten ikasi eban. Amaika neba-arreba ziran.

Bere lau aiztak AINARAK laukotea osotu eben eta ondoren onak lortu ebezan

SOROAK laukotea be bere aiztak eta nebak adiskide bategaz osotu eben. Laukote au gaurko euskal-abestien eragillea zan, eurak ziran abesti onein aurre-ibildariak; euren abestietarik bat, onexek ospetsuak egin zituan, V. Young'en IKUSTEN zan. ESTITXUK beronek, tamalez ezeztutako laukote aren gomutapenez, abesti au barriztau dau eta bereen artean dauka.

Laukote bi oneik, ez aiztu, alkartuta, zortzi anaiak bat eginda, barriemoilleak diñoenez, BILBO'KO TRAPP SENDIA osotu eben.

* * *

Amazazpi urtekoa zala, ESTITXU'k Beskoitze'n bere batza osotu eban eta zenbatu eziñeko jai-aldietan sartu zan: Tardetz'en, Donibane Loitzun'en, Biarritz'en, Mauleon'n Baiona'n t. ab...

1967'en barriro Bilbo'ratu zan eta urte aretako lotazillean, Santiago Apostoluaren antzokian, len-aldiz abestu eban. Ondoren oso goragarria izan eban.

1968'ko otsaillean Bilbo'ko Club Lions Laterriartekoak eratu eban gazte eresiaren lenengo jai-aldian sari nagusia lortu eban.

Urte beratan, garagarrilean, Eibar'en izan zan euskal-abestien lenengo jai-aldian be sari nagusia lortu eban.

* * *

Bere asieratik urtea igaro baiño len, 1968'ko azillean, Ameriketara joan zan. Venezuela'ko eta Mexico'ko telebiziñoak illebeterako artu eben. Zazpi illebete igarota, Ameriketatik etorri zan. Venezuela'n, L. P. bat eresmintzaratu, grabatu, eban eta Hit parade'ko lenengoen artean zazpi abesti ezarri zituan, euretarik iru euskeraz.

Laterri bi areitako telebiziñoetan abestu eta ondoren oso onez urten eban beti; gerorako be zeregin artuak itzi zituan, esaterako Carlos Velo Mexico'ko zine-zuzendari ospetsuaren ardurapean pelikula bat. Baiña zeregin oneik bertan egiteko izena emon ba'eban, lengo zazpi illeen gaiñera beste amar egon bearko leukela ta, gerorako itzi zituan.

* * *

1970'ean sarri abestu eban inguru guztian.

1971'ko urtarrillean (Casco Viejo) Uriburu zarrako garai-ikurra irabazi eban, ille osoan BAKARRIK bere abestiari eutsi eutsolako.

Otsaillaren amalauan, Algorta'ko BIOTZ-ALAI abes-taldeagaz Coliseo Albia'n abestu ta ondorenik goragarrienatariko bat lortu eban.

1968'ko orrillean lenengo eres-mintza, diskoa, egin eban; garagarrillean bigarrena, jorraillean irugarrena; degonillean laugarrena, Movieplay'k zabaldua au.

AGEKO

EUSKAL-ABESTIEN SARIKETEA

Arrasate'ko «DANOK-EUSKAL JAKINTZA TALDEA»k euskal-abestien benetako sariketa bat eratu dausku. KANTA-BERRI da sariketa onen izena. Talde au Arrasate'ko gaztediarena da eta Loiola'ko erri-irratia eta ERRI-LANKUTXA ditu laguntzaille.

* * *

Berrogetamar abesti agertu ziran sariketa onetarako. Arauak amasei aukeratu bear zirala iñoen, baiña epaillariak amabi aukeratu ebezan, besteak sariketarako bearrezko ziran baldintzak ez ebezan betetan eta.

Epaillarien izenak onexek dira: Juan Cordero, Juan Azurmendi, Manuel Urbieta. Epai au urtarrillaren amarrean emon eben.

Egun beratan Kanpazar'en alkartu ziran epaillariakaz DANOK'en arduradunak: Juan Lekuona, Antonio Elorza, Javier Pagalday. Seirak batera, amabi abestien egilleen izenak eukezen estalkiak zabaldu ebezan eta zerrenda onelantxe agertu zan:

Nere Maiteari	Izen-ordea:	**Arriaga**	*Ereslari:*	Luis Aramburu (Gazteiz'koa)
			Itzak:	Pedro Anitua (Gazteiz'koa)
Dantzatu Daigun	»	**Agur Jaunak**	*Ereslari:*	José María Juaristi (Azkoiti)
			Itzak:	José María Juaristi (Azkoiti)
Bai eta Ez	»	**Urepel**	*Ereslari:*	Víctor Ureña (Ondarroa)
			Itzak:	Agustín Zubicaray (Ondarroa)
Maitatzen	»	**Maitatzen**	*Ereslari:*	Juan Orue (Bilbao)
			Itzak:	Eusebio Erkiaga (Bilbao)
Zergaitik	»	**Zergaitik**	*Ereslari:*	Ricardo Dorado (Madrid)
			Itzak:	Eusebio Erkiaga (Bilbao)
Euskal mendietan	»	**Euskal Mendietan**	*Ereslari:*	Miguel A. Arbea (Iruña)
			Itzak:	Miguel A. Arbea (Iruña)
Gure Gaztedia	»	**Urtxoai**	*Ereslari:*	Pello Mari Zabala (Aranzazu)
			Itzak:	Pello Mari Zabala (Aranzazu)
Uda berri	»	**Biurgain II**	*Ereslari:*	José Iturria (Zarauz)
			Itzak:	José Iturria (Zarauz)
Jolas leku baten	»	**Xoxote**	*Ereslari:*	José M. Altuna (Azpeitia)
			Itzak:	José M. Altuna (Azpeitia)
Kezkati	»	**Xoxote**	*Ereslari:*	José M. Altuna (Azpeitia)
			Itzak:	José M. Altuna (Azpeitia)
Guria	»	**Guria**	*Ereslari:*	Fco. J. Carbayo (Bilbao)
			Itzak:	Eusebio de Erkiaga (Bilbao)
Nere udazkena	»	**Arkaitz**	*Ereslari:*	Luis Aramburu (Gazteiz)
			Itzak:	Pedro Anitua (Gazteiz)

* * *

Amabi abesti oneik Donosti'n, Gazteiz'en, Bilbo'n eta Iruña'n, sasoiz esango diran egunetan, uri bakoitxean taldeka, abestuko dira. Edozelan be orrilaren eta bagillaren barruan. Onenak irabazi dagiala.—ARTEAGA

EUSKERA

ITAUNKETA BATERI NIRE ERANTZUNA

Deustuko irakastetxe nagusian izan zan batzar bateko itaunketa eldu jat. AGUR irakurten daben guztientzat onuragarri izan leitekelakoan, itaunketa orretan agertzen diran itaunai erantzun bear dautset. Guztien argitasunerako izan leiteke.

* * *

1.—Gaur Erria, aurrerapide mailla batera eldu da. Danentzako eskolak, izparringiak, zinea, irratia eta telebiziñoa ditu.
Baiña euskaldun talde txikiak eta agintaritza berezi barik daukaguz.
Baita euskerea ezagutzen ez daben talde aundiak barruan daukaguz. Eta gure ingurukoak gu baiño ugariagoak dira. Izkuntza batuaren eta jakintza aurreratuaren jabe dira. Gure jakintza makala iruntziteko, laterriaren indarra dabe.
Iraun geinke euskera banatuan jarraitzen ba'dogu?
—Euskera batua bear-bearrezkoa da. Ori ezin geinke ukatu. Itaunaren barruan agertzen diran zergaitiak oñarri ona dauke.
Orain arte euskereak, banatua izan arren, iraun ba'dau, siñistu eziñeko gauza bat izan da. Baiña gaur arerioak indartsuagoak doguz. Zeintzuk diran esanda dago: eskolak, izparringiak, zinea, irratiak, telebiziñoa, barruko erdeldun-taldeak, inguruko jakintza indartsuak...

* * *

2.—Euskereari iraunazoteko guraria ba dagola egin daigun. Ori ta guzti be, egiten diran alegiñak bide onetik ete doaz? Bide bearrezko bat gure izkuntza gizarte-mailla guztietara sartzea da: Irakaskintzara, argitaratzeetara, antzerkietara, irratietara eta beste maille batzuetara eldu geintekez; baiña beste askotara eltzea: irakaskintza osora, izparringietara, zinera, irratira, telebiziñora giroa aldatzen danean...
Izkuntzeak banatuta irauten daula lortu al izango dogu?
—Euskalki guztien gaiñetik eta izkera guztiak bizi dirala, berez il artean beintzat, euskera batu bat bear dala, gure alegiñak elburua lortu dagien, ezin ukatu. Euskera banatuagaz mailla orreitara ez gara elduko. Baiña bide orreik euskerea batzeko laguntza izango jakuz, baita.

* * *

3.—Gaurko albiste-bide errikoik, indarra artzeko ta irauteko, bear-izan bereziak ditue. Irratiak eta telebiziñoak entzule asko; albistariak, eskola-liburuak eta literatura-argitaratzeak zabalkunde asko.
Euskaldunak ain gitxi garan ezkero, euskerea euskalkietan banatuta dagon artean; BESTE IZKUNTZA BATZUETAKOEN BESTEAN irauteko indarra ba daukagu?
—Euskera batua bearrezkoa dogula guztiok batean diñogu. Euskera banatuak makaltasun aundia dakarsku, bai aldizkarietarako, baita beste albiste-bideetarako eta idazti-zabaltzerako.

* * *

4.—Umeak euskera batuan ikasteak dakarzan alderdi on batzuk argi ikusten doguz. Esaterako, beste ume euskaldunakaz alkar-ulertzea. **Euskera batuan ikasteak guraso ta beste eldunakaz izango dabezen artu-emonetarako gaiztasun bat litzekela, ala eragozpen berezirik ez dala izango uste dozu?**
—Esandako alderdi ona aztu barik (beste euskaldunakaz alkar ulertzea esan dogu), eragozpen ori kontuan artu bearrekoa da. Orregaitik, umeak bere sendian ikasi dauan izkerea ondo ikasi bear dau. Izkera ori errikoa be izaten da. Gero euskalki batua, esaterako bizkaiera idatzia. Gero beste euskelkiak. Azkenez euskera batua. Antza daukan beste luzea ta gatxa bide au danik ez uste izan.

* * *

5.—Euskalerrian, gazteleraz egiten dan tokietan, oindiño gaztelera idatziaren eta esanaren artean ezbardintasun aundia agiri da. Orain urte batzuk ezbardintasunak agiriagoak ziran. Umeak eskolan sartu diranik aurrera, ezbardintasunak bateratuez joan dira eta gaztelera idatzia ezarriez. Au jakiñaz, eta eskoletan irakasten dan izkuntza «amaren izkuntza» iñon ez dala izaten ikusirik, euskera batua eta esanaren arteko ezbardintasunak toki askotan aundiak dirala autortuta, **ongarri ala kaltegarri izan leiteke, zure ustez, toki oneitan jakintzaren oiñarriak euskera batuan emotea?** Kaltegarri dala uste ba'dozu, **arazo bardiñeko beste izkuntzarik ezagutzen al dozu?** Zelan garaitu dabe arazoa?
—Lenengo egunerik, berak argi-argi aditzen ez dauan izkerea erabiltea umearentzat oso kaltegarri dalakoan nago. Umeak errez ikastolea gorroto izango dau, irakaslearen berbak ulertzea gatx egingo jako eta poztasuna galduko dau. Berak, txikitarik, urteetan, izkerea ikasteko egin ditun alegiñak alperrekoak izango jakoz; bide oneik, berez zurra izan bear leuken umea, ketotu egingo dabe. Ondoren astunak dira oneik. Gaur erdereak egiten dautsezan kalteak orduan euskereak egingo leuskioez.
Beste toki batzuetan zer egin daben, une onetan ez jatort burura.

6.—Gaur egun, gure lantegietako langilleak, egunero gaiez kanpora irakurten dituen idaztiak ez dabez ulertzen. Telebiziñoko programak be, sakon zamarrak eta izkuntza aberasdunak diranean, erdirik ez dabe ulertzen. Au egindako itaunketai emondako erantzunak agertu dabe. Eta ori, geienak lenengo maillako ikasteak egin eta jakintza erderaz artu dabela. **Euskaldun geienak euskera batuan aurkitu dituen oztopoak bide orretatik datozela uste dozu?** Jakintzaren jabe ez diralako: geiago, euskal-jakintzarik ez dabelako; ala **euskera batuak berak dauan eragozpen bereziren baten dago oztopoa?** Eta ikuspegi onetatik, jakintza ta euskal-jakintzaren aurrerapenak zer ondoren ekarriko leuskio euskal-gizonari?
—Euskera batura maillaka ta ariñaketa larregi barik ba'daroagu, eragozpen ori txikiagoa izango da, aditu-eziña mundu guztiko eragozpena izan arren. Artu daigun batasunerako erriaren bidea, eta berez gatxak diran gauzak gatxagoak ez daiguzen egin. Erdeldunak dauken eragozpen ori, euskaldunak euki ez dagien alegindu gaitezan. Ori ta guzti be eukiko dabe ta.

* * *

7.—Euskerearen batasun aldekoen artean, batasuna egikeran ezbardintasuna dago. Bide bi agertzen dira geien: Batzuk batasunak berezkoak izan bear dauela, euskalkien artean onena erriak berak berezitu ta onartuko dauela diñoe. Beste batzuk, lantze eta erabagi egilleak bear dirala, aditzean esaterako, eta erabagi orreitara idazlari ta izkuntzalariak euren lanakaz sartu bear dirala uste dabe. Bide au argituez doa eta gaurtik bideak aurkitzen dira.
Lenengo bidearen aldeko ba'zara, berezko aurrerapenaren aldeko, **zelan ikusten dozu batasunaren bide au? Zerk bultzatuko dau izkuntza batasunera? zenbat denpora bear dau bide onek? Era onetan batasuna lortu dauan beste izkuntzarik ezagutzen dozu? Zergaitik dozu bigarrena baiño naiago?** Bigarrenaren aldeko ba'zara, **zer arrazoi daukazu? Zelan ikusten dozu bidea? Ezagutzen dozu bide onetatik batasuna lortu dauan beste izkuntzarik?**
—Lenengo bidearen aldekoa naz, berezko aurrerapenaren aldekoa, baiña ez berezko uts-utsa, gero! Apur bat lagunduta, landara bateri azteko laguntzen jakon antzera. Batasuna etorriko da, ba dator. Zati on bat eginda dago, bizkaieran esaterako. Gipuzkoeran eta beste euskalkietan be uste dot baietz. Baiña dana batzeko itxaron egin bear, ez geldi, lan egiñez baiño.
Izkuntza batasunera bultzatuko dabenak idazlariak eta izlariak izango dira. Zenbat denpora, ezin jakin. Albiste bideak, ondo erabilten ba'doguz, laguntza aundia izango dira.
Era onetara zabaldu zan gaztelerea, baiña ez Iberia guztian. Italia'n antzera, Dante'n indarrez, baiña izkera guztiak galdu barik.
Zergaitik naiago? Izkuntza erriarena dalako.

* * *

8.—H'ren arazoaz: Zeintzuk dozuz alde ta aurka daukazuzen zioak? Izkuntzalaritza-ikuspegitik eta psikoloji-ikusi pegitik.

—H'ren alde: Kondaira aldetik. Antza euskeran sakon ei egoan. *Baiña egiten ei zan.*
—Batasunerako, h *esaten daben onartzea leiteke, baiña gitxi dira geienak izteko gertu dagoz.*
—Itz batzuk berezituteko. Au be kuntzan bearrezkoa da. Orretarako lau itzetan h *sartu eben italiarrek* ho=dot, hai=dozu, ha=du eta hanno=dabe. *Orrelan be itz oneitatik berezituten ziran* o=edo, ai=ai (gizonai), a=au anno=urtea. *Baita* c *eta* g *tarrikoak izan daitezen* ch *ta* gu *idazten dabez. Azkenez, oiu-u interjeziño, batzuetan. Itali'tarrek beste* h *gustiak kendu ebezan. Bai ona dala uste dot.*
—H'ren aurka:
—Gure idazkerea izkereagaz bardin bear dogu. Izkuntzalariak bide onartzen dabe. Eta h, *geienak, dogu esaten.*
—Irakurleentzat euskerea asko gaztuten dau.
—Abedetzea alfabetatzea, ain beharrezkoa, asko gaiztuten dau.
—Euskerea irakurten asko asi da. H'*a oztopo bildurgarri bat da. Esterako, entzuna idazkeran, diktadoerdereak daukazen gaiztasunak euskerara dakarskuz.*
—Toki guztietan bardin erabilten dan lez, iñok ez daki h *non ezan.*
—Orain artean h *izan ba'gendu, tasunerako bidea erreztuteko, egin bearko geunke. Eta zergatik orain sartu?*
—Ekonomi-aldetik, non ezarri ira ten erabilli bear dan denporea alperrik erabilli bear dan ingu abar kontu egin ezkero, galtze ragarri bat da. Ori diñoe erdera h'*ri buruz be.*

Bein bide bat artu ezkero atzera egitea da erreza izaten, batez be berarizko zio batzuk ba daukaguz. Baiña euskereari dau gun maitasunagaitik, itzi daigun izki ori beste bideetan batu gaitezen, al dogun tean beintzat. Oindiño ba leiteke gure kerea bizirik atera al izatea. Oztopo bar ez dagiogun ipiñi. Gure ostekoak esk emongo dauskuez.—OLAZAR MARTIN

POZAK ETA KEZKA

Neomordoilloak

Aita Luis Villasante'k, Bilbo'ko Gazetan izan eban alkar-izketan, neolojismoeri «terminachos» deitzen eutsen. Villasante'rentzat ikastola, urrutiziña, egazkiña ta ab, «terminachoak» dira. Ta, maleruski, bulego, populoa, kapable (masculino), blancoak eta Euskaltzaindiak erabilten dituan beste «berba» batzuk, zer?... Euskaltzaindia ala Erdalkundea? Zaindaria bear dogu.

* * *

Norbaitek, Euskaltzaindiaren aurka gaudela esango du... EZ! Naizta arau bidez artuak diran erabaki batzuen aurka, bai! Zortzi edo amar jaunek boto bidez euskeraren etorkizunaren jabe nai izatea, geiegitxo da. Nun dagoz beste 160 euskaltzaiñak? Noizko da itaunketa edo «inketas» (bardin dausku) bat? Orduan jakingo litzake Euskaltzaindi'aren eretxia. Osokoen artean gaiñera, erderaz esaten dan bezela: «Ni están todos los que son ni son todos los que están». Jakintsuen artean Mokoroa, Akesolo, Onaindia ta beste asko. Gaiñez dagozanak ez doguz izendatuko... ta oneik dira «botodunak».

Ipuiña

Gaur ipuin bat dakartsuet, ipuin laburra: Denok jakingo dezute, nola ez!, gure errietan eta batez ere itxas-ertzeko errietan, sendi geienak ezizenekin ezagutzen dirala. Ezizen oiek sarritan alako «kresala» izaten dute. Gure ipuia Donosti aldeko jauregi baten jazoa da, «Orapronobis-Enea» izeneko jauregian; gizaldietan orrela deitzen diote ta iñork ez daki zergaitik. Baratz eder batek inguratzen zun eta margo ederdun lorak, lirain eta politak, alaitzen zuten lorategia. Ango margo urdin, ori, zuri, orlegi, gorri ta abar! Begientzat eta biotzarentzat pozgarri... baiña, «Orapronobis» eneko ugazaba ta bere semeak, lora oien margoekin aspertzen asita zeuden; zuriak eta orlegiak zimeltzen asiko ote ziran edo, txotxoloena iruditzen zaien aspaldiko lorategiaren margoa.
Erbesteko lagun bat etorri zitzaien, azi berriak eskeintzen: «Azi abek lur mardul onetan, ederki erneko dira» esan zien. Orrela siñesturik, erein zituzten eta bai laster erne ere... baiña, nolako lorak! Piper-kolore gorri itsusiak, mota beltza kima arantzadunak eta sustrai luzeak ingu lora zuri, gorri, orlegi, urdin eta besteak lortu nastatu ta legortu ziluzten. Baratza alperrik tzen ikusirik, larritzen asi ziran baratza apain zebiltzaten gazte batzuk. Mutil jator aiek zien euren buruari: «Zertako erein erbesteko berri au gure baratzean?» «Abek ez dira gure lo
Baiña azi banatzailleak, itz gozoekin zun gure «Orapronobis» jauna, ta berak iku batekin beste itxura bat emango ziela uste zuan berriz baratzeko beste zati askotan, erbesteko ura erein zun...
Baratzean orain ez da lora zuririk, ez da gorri ez orri orlegirik. Piper-koloreko mota tzdun sasi-artea biurtu zaio lorategi ederra «Orapronobis» eri, baiña pozik da ura, ta zer Inguruko baratzetan sartu ditezten mariara nak egin...

PIPER-ZIRI (ORLEGI

BATU-BIDEAK

Aita Argentieri, Josu-lagundiko Itali'tar bat da. Amaika urte daroaz Txina'n mixiolari, baiña beste laterri askotan be egon da, ta amar izkuntza dakiz. Txina'n egoala izkuntzen batasuna egitea burura etorri jakon eta lan oneitan urteak daroaz. Kontuan artu bearrekoak diralakoan, bere eretxiak, laburrean, agertuko doguz.

Elburu orretarako, lenengo ta bein, bide bi artu ditu: izkuntzak erreztu ta onein aurrera-bidea zuzendu. Erreztasunerako gramatikea ta iztegia kontuan artuko ditu. Gramatika-aldetik, aditz-joko batzuk kendu egingo ditu; izen-kundeak, «generoak», bi izango dira; eta emezkoak pizti emeak eta andrazkoen izaerak bakarrik.

Idazkeran, ortografian, buruz artutako zuzenbide bakarra ipiñiko dau: abots bakotxarentzat izki bat, esaterako j **ta** g'*ri* **begira,** c **ta** z'*ri* **begira. Orrelan ez da izango ezbairik idazkeran.** H **kendu egingo da.**

Iztegia aldatukeran ekiñaldi bi izango dira: Lenengo ondo bardiña dauken itzak batu, bigarren ondo bardiña ez daukenen artean aukeratu. Ekiñaldi bietan geien zeintzuk erabilten diran kontuan izango dau. Batze eta aukeratze onetan be erreztasuna ez dau aiztuko.

Aurrerabideari begira astiro ibilli bearko dala diño eta izkuntzalari trebean eretxiak onartu. Gaiñera erria arduratu bear da eta erri oneri bideak emon bear jakoz: liburuak, aldizkariak, irratia, telebiziñoa, ta abar. Aldakuntzak maillaka bide oneitatik sartuko dira.

(«Jesuitas» aldizkaritik, 56n. zenbakitik artua)

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA
IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao
ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia
Arpidetze ta Agurri dagokion gutirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 1
Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

NUNDIK NORAKOA

GOGO-BEGIAK ITXITA

Kamaldularen sortzaille Erromual deunaren egunean, otsaillaren zazpigarrenean, jaio nintzan, 1934'garren urtean Santurtze'ko errian. Zenbatu ondo ta ba dakikezu noiztikakoa nazan mundu onetan. Nundik norakoa, ostera, gatxago da asmatzen.

Orregaitik saiatuko naz orri oneitan barna zeuri ori adierazoten. Eukizu egotarri pitintxo bat eta diranen jakitun ipiñiko zaitut. Nire Zaindariak 120 urteko bizia izan eban. Nik ez dot ziurtasunik arenbeste biziko nazanik. Ori dala-ta, asi naz bertotik idazkortzari eragiten.

Zazpi neba-arreba gara etxean. Ni irugarrena ta mutilletan zarrena ta leloena. Burni-kontrabando edo olakoetan jardun gabe, euskerari emona bizi nazeta. Alaz ere, pozik nagokizu ta ez noa aldatzen.

Aurrera baiño len, esango daustazu ia zertara datorren nere bizitza azaltze au. Izaron, ba, azkeneraiño ta ikusiko dogu esatea merezi dauan ala ez. Nere asmoa zuzena ala okerra, mesedegarria ala kaltegarria ete dan.

Umetako oroitzapenik ez dot iñori esateko. Orduan gogo-begiak itxita bai nebazan. Arpegikoak zabalik euki arren, ez naz ezertaz gogoratzen. Geroago jakin dodanez, beste edozein umeren antzekoa izan bide zan nere aurtzaroa. Negar eta irri, jolas eta benaz, abesti ta otoi azi ninduen etxeko epelean. Ordukorik geiago ezertxo ere ez.

Gure gaztetan: «Soy de Santurce, bonita aldea» abestu oi eben bazterretan. Arrezkero, ez dau aldakuntza makala izan gure erriak! Len garbi ta txukun, orain ez dakit zelakoa. Adibidez, garai aretan itxasoko urak garbi izaten ziran gora-aldietan eta bai beraldietan. Orain, barriz, izgora danean usaindu zeinke itxasegiko ingurua. Izbera danean, baiña, zikinkeria baiño ez da agiri ondarretan. Ainbeste azi ta aurreratu dogu erria!

Ez dot mingarri daitenik idatzi gura. Alabaiña, ba-leiteke iñoiz arritzekorik idaztea. Arrituta gelditu zaitekeze; ez, gero, arri biurtuta. Ez zeunkee aurreragokorik jakingo-ta. Esaterako, ni jaio nintzan erria ta mundura ekarri ninduen gurasoak erdaldun utsak izan ta nola billakatu nazan gerogarrenean euskaldun amorratu edo amorrarazia. Ori ta geiago esango dautsuet, Jaungoikoa lagun eta aztertzaillea legun.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANGEL

TAAKORRIA

Erre-bedarra ta gazteak

Bordele'ko Freour irakasleak, Paris'eko pedagille-akademiara, denpora gitxi dala, laskizunak eroan ta agertu ditu erre-bedarraren erretzeari buruz.

Zer ondoren dakartsen gizonei, bereziki gazteei kebedarra erretzeak?...

Eta diño:

Nikotina bedarrak edo euskeraz deitzen dogun «erre-bedarrak» beregan pozoia edo edena daukala, yakintsuen eta sendalarien artean ez da zalantzarik.

Beraz, «erre-bedarra» erretzen dauanak, aren keeagaz batera edena edo pozoi, be, barruratzen dauala, gauza ziurra da sendalarientzat eta yakitunentzat.

Taakorria gero ta geiago erre oi da

Irakasle berak agertzen dauskunez, 1932'garrenean, urte batez bakarrik, gazte bakoitzak, bataz-beste, 570 zigarro erre oi ebazan. 1967'an 1.430 zigarro. Beraz, 1967'an, 1932'an baiño birritan geiago, ia iru bider geiago.

Bordele'ko yende artean, yarraitzen dau irakasleak, eundik larogei gizon erretzailleak dira, eta erretzen ez dauena, bakan ta itxura bakoa lez agertzen da besteen aurrean.

Baiña erre oi daben guzti orrein artean, larogei baiño geiago 22 urtetara baiño len erretzen asiak dira. Ta onein arteko ogei ta amar, 20 ta 21 urtetan, au da soldadiskan asi ziran erretzen.

Ortik atera oi dau Freour irakasleak, 22 urtetarako erretzen asi ez diranak, gero be es dirala erretzera emoten. 22 urte igaro ondoren, gitxi dirala erretzen asi ta yarraitzen dabenak.

Eta azkenez, ikaskizunaren amaieran, onako ondorioak atera dauz:

1.—Ez da erraz, erretzera eginda dagozanen artean «erre-bedarra» kentzea. Ba-dira kentzen dabenak; gitxi baiña, ortarako bear dan aiñako borondate indartsurik ez daukelako.

2.—Beraz, «erre-bedarra» urritzeko, lana ta zabalkundea oraindik erretzen asi ez diranen artean egin bear da, frutua izan dagian.

3.—Soldadiska garaian, ez leukiela bezuzatu (erregalatu) bear erre-bedarrik gudari barriai.

Ona zer yazo zan: Olango batean, nagusia etorri yaken gudari barriai zigarroakaz ta asi yaken duan emoten.

Orduan mutil batek, erre-bedarraren ordez, dirua artzea gurago ebala esan eban. Ta emon egin eutsoen.

Urrengoan, beste mutil askok be, dirua gurago, erre-bedarra baiño. Nagusiek, baiña, ezetz erantzun eutseen ta erregarriak bakarrik zirala ta duan gaiñera emon eutseen.

4.—Gaurko egunean, geroago ta gazteago asten dira erretzen: 17, 15 ta 13 urtekin be bai.

Ikasleen artean zabalkundea bear litzake egin «erre-bedarra» ren aurka, ikasle gazteak ideia ta igikera barrietara errezago etorten bai-dira.

5.—Gizartean arrazoiak azaldu bear dira «erre-bedarra» ren aurka. Esate baterako, ke-bedarraren pozoia, ardaoana lez, betiko geratzen dala gizonaren barruan.

Eta gaurko gizonai, teknika zail eta aurreratuetan lan egin bear dabenei, ez yakela konbeni alango pozoia ta edena berengan eroatea; alderantzi, bearrezko yakela euren buruaren yaube oso-osotan iztea, alango teknika ondo erabilli ta ondo burutzeko.

Onaiño Bordele'ko Freour irakasleak. Laburpentxoa da.

* * *

Orain guk onela itandu dagikegu: 17 urteko mutil gaztea, tranbiaren erdian ta yendeen aurrean, zabal-zabal erretzen doana, zergaitik ta zertarako doa erretzen,...

Bere kirioek ta urdaillak eskatzen dautselako?...

Ala, erretzen yoan ezkero, barrena paketu ta lasaitu egiten yakolako?...

Ala, danen aurrean erretzen yoanaz, danen aurrean be, gizonago ta bikaiñago agertzen dala, irudi oi yakolako?...

Olango ametsak, ene iritzi apalez, amets zoroak dira, txakur-ametsak besterik ez.

Baiña beti be egia da, erretzailleak barruan «nikotina-bedarra'ren pozoia ta edena daroazela. Eta barruko pozoi orreik ez dautsela mesede aundirik egingo, batez be luzarora.

Gaurko teknika barri ta zailletan be, askoz obe dala, barrua garbi eukitea pozoi barik. Eta geiago be bai oraindik:

Barruan geratzen dan pozoi ori, gaixotasunak sortzeko bidea dala: min-bizia, albokomiña, biotzekoa ta a...

Eta erretzen dauana emakumea ba'da, izango dauzan umetxoai be, kalte egingo dautsela.

Baita erre-bedarren keaz beteriko gelan ta aretoetan lan egin oi dabenak be, naiz eurek erretzailleak izan ez, euren txixa aztertu ezkero, laster ezagun ei da, keaz inguraturik, kea irensten bizi dirala egun oro, ta orrekin edena. Olan diñoe sendalariek.

Mesedez ba, gazteok, ez erre!

Diruak erretzen zabal ta galdu barik, batu ta gorde. Ta orreikaz gero, AGUR erosi. Ta AGUR irakurriaz, alde batez obeto aurkituko dozue kirioen bakea ta buruausteen lasaitasuna; ta beste aldez, Euskerea ta beste yakingarri asko ikasi be bai.

Eta agur, urrengo arte Yainkoak gura ba'dau.

MOTXOGANE

Paris'eko «Témoignage Chrétien» asterokotik artua

EUSKAL HIT PARADE

Otsail'eko goraberak

Euskal diskoen salketan ba-dabil gora-bera ederra, ta orrek poztu egin bear gaitu; ez da ba epeltasunean loakartzerik. Ikusi bestela zelako norgeiagoa darabillen Estitxu, Libarona, Urretxindorrak eta Mocedades'ek, oneik eta inguruan darabizen Oskarbi ta Naikari taldeak.

Illaren bigarren amabostekoan, salketak, autarkiak eta irratietarako eskabideak eraginda, onela dago giroa:

1.—*Alperrik Dijoaz*, Libarona.
2.—*Bakarrik*, Estitxu.
3.—*O Pello Pello*, Mocedades.

Ille osoko neurketari begira, beste onetara agiri yaku:

1.—*Alperrik Dijoaz*, Libarona.
2.—*Neska Zarrak*, Urretxindorrak.
3.—*Bakarrik*, Estitxu.
4.—*Begi Eder Orrekin*, Naikari.
5.—*Txori Txikiak*, Oskarbi.

Burruka gogorra izan da, Libarona gaiñetik jarri da, ta ez lenengoz, lenago be izan da. Onetatik ikusi daikegu azken orduko gorakadan Estitxu ta Mocedades indartsu datozela barriz. Lenago be esan gendun zergaitik sarri izaten dan goigoian egon eta beratze baten ondoren barriz goian agertzea. Au, Ares jaunak azaldu euskun; iñoiz disko salketa aundia izan ondoren, saltokietan aitu egiten dira, eta saldu ezin barriak eldu arte. Bitarte orretan neurketarako makal. Disko sail barria eltzean baiña, barriz gora-gora.

Iñoiz galdetzen ibilliko zaree, zelan egiten ete-dan saillean ipinte ori. Ara ba, au Ares jaunaren lan goragarria dozue. Orretarako, disko etxetako salketak aztertu bear izaten dauz; oneri, entzuleak irratietara egiten dituen eskaerak zenbatu ta ezarri; ta azkenez, korreos bialtzen diran iritxiak autarki lez gaiñeratu.

Zeaztasun geiago gura izan ezkero eta zeuen iritxiak be azaldu, entzun egizuez Ares jaunak zuzentzen dituan irrati saioak: Egunero 9'etan Bilbao'ko Radio Nacional; larunbatetan 15 terdietan Radio Bilbao; igandeetan 11'etan Radio Popular; Gazteiz'en igandeetako 12'etan Radio Vitoria; Donosti'n Radio Popularreko Euskal-eresi saioan; Radio Loila'k egunero, KANTA BERRI saillean, eta Iruña'ko Radio Popular'en euskal-eresi orduan.

Euskal meza barria


Ba-dakizue, gure mezea osotzen, Barturen Aitaren zuzentzapean, abesti eta doiñuak aukeratu dira, eta disko bat egitekotan dira. Epail onen 28'an, Bilbao'n Coliseo Albia aretoan, mesa ori abestuko da lenengoz. Orretarako *San Anton* Abesbatza, Ondarroa'ko *Kresala* taldea eta txistulariak deituak izan dira. Ez dakigu oar au garaiz irakurri alizango dozun, Zain egon zaite baiña bertan izan diranen iritxiak entzuteko.

Venecia-Saturraran

Euskal-abesti Sariketea Saturraran'en udabarriko larunbatetan. An, *Venecia* izeneko dantza aretoan, euskal-abesti leiaketa bat antolatu dabe. Euskal bakar-abeslari egiñentzat bakarrik; au da, «profesional» maillan sartuta dabiltzanentzat.

Sariak ez dira nolanaikoak! Lenengoari 75.000 laurleko; 50.000 bigarrenari, ta 25.000 irugarrenari.

Areto orretan bertan izango dira asierako bereizketa-aukeratzeak eta azken txapelketa saioa. Zenbat izango diran bereizketa orreik eta zenbatek abestu azkenean, sariketarako zenbatek izena emoten dabenaren gain dago.



Au bai baiña, datorran Bagil'eko 28'an, gabeko ekiñaldean izango da azken saioa ta txapeldunak aukeratzea. Besteak, bereizketa-aukeratzeak, aurreko larunbatetan, Jorrail'aren 3'an asita.

Launa abesti gitxienaz bakoitzak, eta danak euskeraz izan bearko dabe. Epaimaikoak eurak izango dira bai bereizketetan baita azkenengoan be, ta onein erabakiak ososoan onartuak bearko dabe izan.

ASTI

EUSKAL-JAIA ERNANI'N

Epaillaren 14'an, euskal-jai zoragarri bat izan da Ernani'n, bertako ikastolaren alde ososoan. Anderaiñoak, ederto gertatu ebezan euren neska-mutillak. Jai aldi au, aurkezlari D. Jose M. Aranalde abade jauna zala, Gallarreta'ko Jai-Alai pelota-tokian izan zan.

Lenengo ta bein, zorionak biotzez Mariezkurriena'tar Maritxo'ri beste andereiño ta laguntzaille guztieri ta, batez bere, ikastolako umetxoeri, jai aldi eder ori eskeiñi euskuelako. Pelotatokia bete-beterik aurkitu gendun, jende askok zutik egon bear izan eban.

Jai asteko, umetxo baten aotik, an giñanori eskeintzen «Txori bakoitzak bere olerkia» entzun gendun, ederto esanda gaiñera. Onen ondoren ikastolako ta udaletxeko txistulari gaztetxoak «Mendigoizaleak aurrera» doiñu politakin ikastolako umetxuak atzetik, pelota-tokian agertu ziran, txistuakin batera abesten, gero «An Urrin» jo eben.

Ondoren bertsolariak euskal giroa osotzen. Uztapide, Lizaso ta Arozamena, ikastolari buruz jator-jator euren gai geienak. Emen esan bear, erri askotan bertsolariak bastertu egiten dabezala ez dira «rentable» eta, esanda. Orreik ez dakie egiaren erdirik be. Ernani'k gauza oberik erakutsi euskun.

Gero «Oskarbi» taldeak lau abesti, oso ederto egin eban, abots atsegingarriak dira, zazpi ziranean baiña askoz bere obeto betetzen eben, nesken abotsak ito egiten eben zerbait mutil bakarrarena, entzun dogunez batzuk soldauzkan dira.

Ara gero, ikastolako 8 urtedun neskato batek «Moro Katua» olerkia esan euskun, ederto esan eta ederto bete bere egikizuna gaztetxo arek.

Urrengo, iru gazte Pernando'ren ipuin batekin, ikastolakoak oneik bere, esan, ezin obeto; ta kiñuak, zelan egin!

Bertsolariak barriro, leiaketan, galdera: «aberatsa ba'ziña zer egingo zeunke? Ederrak izan ziran erantzunak, ara bat: «lenengo ikastolako zorrak ordaindu ta barri bat egin».

Oskarbi bigarrenez, ederto barriz be, ondo ezaguna da talde au, ez daukot ba beste ezer esan bearrik.

Ipar-aldeko bertso batzuk 8 urtedun umetxo batek, ango itzak be ezagutu bear ditugula ta «Tip eta Top» errez ulertzeko eran esan euskun. Ta onen ondoren, amaitzeko erremonte deritxoen pelota jokoa, polita, batez bere bizkaitarrontzat gitxitan edo iñoiz ikusi barik gengozanontzat.

Jai onetan ikusi dogunez, euskal kutsua geroago ta geiago zabaltzen doa, ta orretarako, an, Ernani'ko andereiñoak eta gurasoak lan aundia egin dabela garbi agertu zan. Jarraitu dagiala Ernani'ko erriak jator-jator, emen esan daigun nun dagon erri zintzo bat. Zorionak barriro danori, ta eskerrik asko, ta beste bat arte.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

KONTU KONTARI

Koxepa, arrapataka sartu zan, alako... trezna etxekoiak saltzen dabiezan denda baten.

—Azkar! baiña azkar —dirautso saltzallearí—: Emon egidazu azkar lakario bat, tranpa bat, autobusa atrapau bear dot-eta.

—Parkatu; ezingo dautsut emon, andrea —diñotso dendariak—; orren aundirik ez daukagu.

* * *

—Amatxo —dirautso Kepatxuk bera egin ebanari—; arraiak azi egiten al dira?

—Jakiña, ba! Esate baterako, zure aitak joan zan igandean arrapau eban legatza aitatuten dauan bakotxean, zortzi ontza aundituten da.

—Orduan... legatz ori ez zan izan trabenakoa, bestela, aitatuten daben bakotxean txikiagoa izango zan.

* * *

Epailleak salatuari:

—Nun bizi zara?

—Nire anaiagaz.

—Eta zure anaia nun bizi da?

—Ba... neurekin.

—Ez adi izan mosoloa! Nun bizi zarie zure anaia ta zu?

—Epaikari jauna... igarri bear zendun orain ezkero; nire anaia ta ni alkarregaz bizi gara.

* * *

Bazkal-orduan, maikideak morroiari:

—Aizu laguntxoa, sopa onetan euli bi dagoz.

—Geiago eskatu al dozuz ala? Oraintxe ekarriko dautsudaz.

* * *

Emakumeen artean.

—Sarritan asarratzen al zara senarrarekin?

—Ni... illean bein.

—Ba... ni, astero. Larunbatetan jasoten bai dau alogera.

* * *

Kalaudio, zipli ta zapla batari ta besteari diru eske ibilten zan. Orregaitik, adiskide ta ezagunak beragandik igesi ibilten ziran. Lengo egunean Pello adiskidearen etxera joan zan eta alaikiro alan asi bere jarduna:

—Ezetz igarri zertara natorran! Ogei ogerleko jokatuko dauadaz ezetz igarri!

—Igarriko ez dauat, ba! Diru eske ator, i!

—Ez dok, ba, igarri! Oker abil. Gaur, beste bage, eu agurtutera etorri nok; beraz... galdu egin dok jokoa. Ordaindu egidazak ogei ogerlekuok!

* * *

Au izkirimiria ez da, lagun arteko jarduna baiño.

Txirriztada itzelak erabilten dodaz neure adiskide on bategaz, geure euskal aldiskarietako idazkereatzaz. Zer dala-ta idazten dozue «Nafarroa»? Nik, beti, Naparroa esan izan joat, iñostan.

—Mutil, emon egidak niri, bakea. Aspertuta nagok naste orreikin erantzun neutson.

—Orduan orretara jarraitzen bajoagu —gaiñeztu eustan berak—, piperra, fiferra esan bearko joagu. Porrua, porrua. Ta bai al dakit porrua zer dan? Auxe; eta jakearen azpiko euna erakutsi eustan. Eta bere txirriztadeari jarraituaz, esan:

—Jokabide orreri jarraitu ezkero: Gure auzoko Patxi, Fatxi izango dok. Eztok ala?

—Nik etxakiat zuen auzoko Patxi'ri aldakuntza ori egoki baiatorkok, baiña nik dakidan bati, bai.

Egun artan ez eustan geiago txirriztadarik atara.

ABELETXE

MALAX - ETXEBARRIA'RI

Urrin, bizi bearrak eraginda,
zenbat gure euskeldun ete dabiltza.
Nik ezin amestu emendik zer dan
itxaso bizia bakardadean.
Itxasotarrak, samurki, oroitzen
ni zure oroiz eskerrak emoten.
Lurreko aizea, emengo poza
bijoakizuz itxas zabalera.
Urrundik ikusten dozu erria
oroipen eta maitasunez betia.
Mendi eder onen oroipenetan
berpiztu bizia goiz-arratsetan.
Kanta itxasoari, kanta lurrari
maitasun guztia ixuri eureri.
Urrundik kanta Euskal-erriari
gure maitasuna dan biotzari.
Zoramena da gure Euskal-erria
bere itxaso, mendi eta maitia.
Biotzari itzi taupadak emoten.
maite miñez errira eldu daiten.
Urdin urdin urak itxasoetan
ta urdin jantzi da maitia errian.
Agur itxasoa; Agur Euskal-erri
maitasun oroipena da zure egi.

AITZ-ZURI

KAPELU GORRIENE'KO ETXEKO ANDREA

Zu, patarra astean bizi ziñan, aldapa astean, etxe txuri-gorri politean. Gu, aldapa goienean, patarra goienean. Guda-enbatak, antxe, Prefetenea'n, kokatu euskaldun sailla.

Elizara bidean zu arrapatzeko, egin alak egiten nizkizun igandero. Etxerakoan, eliza inguratzen duten il-arrietatik Kapelu-gorriene'ko atariraiño, bide-lagun beti biok. Ele ta ele patarra beiti, berba ta berba aldapa bera.

Etxeko atadian zu utzi, bide bazterreko errekatxoa arriz-arri bizkor igaro ta ausnar gozoan patarra goiti poliki, poliki. Malda gora, gogoetan astiro.

Zuri entzunak ez galdu nai, orra.

Prefetenea'ko lilitegian sartu orduko, antxe neukan beti zai gaur euskaltzain degun AYANBE: Ta, zer dakarkiguzu, ba, gaur? Zer jaso diguzu eleder orren ezpaiñetatik?

Eleder orrek, ez zekizun pantzerarik. Erderarik esaten zenun zuk. Irakurtzen eta idazten doi doi. Ala ere, Sara'ko bide zarrean «ez ikasia ikasiari irakasten» igandero.

Euskal irakasle nitzana ba-zekizun; ala ere, aiek elkar-izketa gozoak gu biok!

Mil esker aunitz, Kapelu-gorriene'ko etxeko andre, saratar eskualdun eskualduna.

* * *

«Ez ikasia ikasiari irakásten». Orixe'renak dituzu itz oriek, irakurle, eskutitzez Txile'tik onoko oni bialiak. Oporketa aietan, au idatzi bai nion nik berari Eratsun'dik:

Etxe-berri'ko kalerian, aitatxi, ari egiten. Ni onen ondoan, lurrean exeria, «Euskaldunak» magalean, Gaztainaro irakurri eta abesten tarteka, esangune illunxkoa. Niretzat illunxko.

Zein pozikago ote, aitatxi argibideak ematen ala onoko au artzen?

Orixe'k erantzun:

Zurea irakurtzean, malkoak begietara. Non ikusi da, ez ikasia ikasiari irakasten? Etxe-berri'ko kalerian, aitatxi zuri. Tolosa'n, Mokoroa A'ri bere Ama.

Uda-ikastaro aietako, ene irakasle euskaldun euskaldunak, Eratsun-Etxe-berri'ko aitatxi-amatxiak, eskerrik asko, bai, eskerrik asko.

* * *

Orain amalau urte, Ori mendi'ra irakasle taldea eraman zenun Otxagabi'ko Joanes, euskaladitzaren ederra zure ezpaiñetan! Ez eramaki guk gerekin egun aretan, japondar ots-argaillu txiki polit orietakoa.

Laiñopean edo euritan ibilli gintzazkizun egun osoan baiña, ua aldartea guk eta zuk «Moko mee zorro biribil jauna» ez zijoan gukin. Zatoa, alegia. Zuk ere, besterik edaten ez zenula jakiki LAS PALAS ostatuan eta akeita beste edaririk ez ziguten jarri arnoakin.

«Zubero'ko neskakin noala iduri zaut», esan ziguzun alako batean. Une batean ere, ez zenun zure burua arrotz nabaitu gure artean, Joanes, emakume giputxen artean.

Ori gaillurrera iritxi ta laixter «Euri'k kateak eten odei bustien sabelean». Txolarte batean, argialdi 2.000 neurkiñetik gora!

Bide-lagun iztun, alai aiek zutik jarri, ta Zubero'rantz so, Ereserkia ben-benaz abesten ikusi ta entzun eta, zer eman ote zizun gogoak, adizkide?

Aunitz esker Otxagabi'ko Joanes, eskualdun eskualduna.

* * *

Ta eskerrik asko, aunitz esker Jainkoa'k nire bidean jarri zaituten aintzin-gizaldiko euskaldun eta eskualdun jator guziak.

Eskerrik-asko, batez ere, Donosti'n euskaldun eta euskaltzale egin niñuzuten Goierri ta Beterri'ko Ama ta Aita.

Zuek guziori zor dizuet, egun batean au entzun al izana: «Ez zira gu bezela mintzo baina klarki mintzo zira. Larogei urteko zuberotar amatxi batek esan zizkidan Baiona'n itz oriek. Ua poza!»

«GUK OARPENA, JAINKOAK SARIA».

IRA'K

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik

Jarraipena

Agobero buru-belarri lanean diardu batez bere arratsaldeetan, gizonak euren lanetatik biurtzen diranean. Asikeran baiñan, gure itxas-gizona bene-benetako bizargiña ez zanez, bere estualdiak igaro bear izan ebazan. Ez da mundu gaixo ontan esamesarik ezagutu ez dauden tokirik. Olantxe ba, erriko mii gaiztoak zabaltzen asi ziran, gure bizargiñak umeeri ulea moztuteko, buruan katillu bat ipiñi bear eutsela, ta katillituk-at urteten zan ule guztia, krisk!, lurrera. Eta gizonak barriz, aurpegian artutako ebagiekaitik, euren etxekoek bere ez ebezala ezagutzen. Baiñan egiari eusteko, ni neu esan bearrean naz, ez dodala iñoiz umeen buruetan olako katillurik Agobero-baitan ikusi, ta gizoneri buruz, bizartegitik iñoizkorik garbi ta txukunik urteten dirala. Gizon aundiak beti izan eta izango dira gizarteko zitalkeriaren opariak. Baiña gizaseme zintzo ta benetakoek, noizbait euren saria jasoten dabe, ta gure itxas-gizonak Basozelai'ko Agustiñe neska maratza ta politaren biotz xaloa irabazi eban, eta ezkondu ondoren kale nagusiko etxe txukun eta argi batean bizi dira.

Arduradun zuur bateri dagokionez, gure Agobero'ren goiburua alegin guztiak bezeroaldez egitea da; bere bizartegian beraz, danok begirune ta aukerarik aundienak artzen dabe. Norbait bere txanda itxarotean aspertuten baldin ba'da, orduan bere yesar-lekuan txapela itxi dagike, ta Txomiñ'enean bizitzako garraztasuna txurrut baten bidez uxatuko dau. Ta bitartean txapel bakoitza ugazabaren itzulpena igurikan egongo da. Bein baiño sarriago, bizartegiko bezeroren batek Txomiñ'en ardao bikaiñak erakarrita, txurrutari yatorkon baiño geiago emoten dautso, ta orduan danatzaz aaztuta etxera burutsik biurtzen da. Urrengo egunean baiña txapela aurreguneko lekuan bere begira egongo da.

Bezeroren batekin amaitzen danean, txanda yatorkona aren tokian yesarriten da, ta aulkiluze batean itxaroten ari diran gizonak eta txapelak leku bat aurreratzen dira. Baiñan txanda txapelari ba'datorkio, orduan Agobero'k bitarteko oltzean ukabilka asten da, ta beste aldera edaten ari dan bezeroaren izena iñusturi alakoa deadar egiten dau. Orduan onek txapela arri bizar-aulkian yesarri, ta bere burua Agobero aundiaren zaindaritza-pean itziten dau.

—Zelan gura dozu? —maisuak itaunduten dautso.

Orduan bezeroak bere naia azaltzen dautso, ta yarraiki maisuak zapi bat idun-inguruan lotzen dautso, ta itz egiteari unetxu batez etentzeke, lanean asten da. Ulea moztu ta apaindu ezkero, bizar-moztaldia asten da, ta au dogu ezpairik gabe (au bai errikoek eta bai kanpotarrek aitortzen dabe), Agobero'ren maisu-lana. Itxasgizonaren begi ernaiak eta esku trebeak, bere roaren aurpegia ume baten ipurdia baizen leuna biurtzen dautso.

Eguzkiak, aizeak eta labetako beroak, gure nekazari ta langilleeri latz eta tximur biurtuta aurpegiak, benetako eupada izan yakozan asikeran gure bizargilleari. Maisuaren ganorak ez egiten eban zimur arein aurrean, baiñan gure Agobero itzelaren asmamen neurrigabeko eragozpena garaitu eban, bai, gurenda intxaur baten bidez lortu zan. Bezeroari masail zabalrraren pean intxuar bat sartzen dautso, ta orduan masail anpatuan toles guztiak aienatuta maisuaren lanabes zorrotzak bere erti-lana egiten dau. Zeregiña amaitutakoan, intxaurra berezeroaren masail-azpitik atara, ta apal-gaiñean urrengo bezeroaren begira geratzen da. Ziur naz egunen batean Agobero'tarren armarrian intxaur bat toki bereizienean agertuko dala.

Baiñan maisuaren goreneko nabaritasuna bere itz-yario alaigarria da. Izketan asten danean (eta au sarri gertatzen da), ez da ezerk ez iñork geldi-arazi dagian. Garrantzi aundigai bat darabillenean, ule-moztaldia edo dana dala eten egiñaz, artaziak edo labana bezeroren sur-aurrean astintzen ditu, ta yakiña onek baietz beti, egia dala diñotso. Ez dot gizonezagutu ain atsegiña danik berba egiten dauenean, eta au gai guztietan ipintzen dituen gaitasta piperragaitik noski. Agobero'k ez dau iñoiz guzurrik esaten, ez orixe, beti egia oiñarritzartzen dau, baiñan bere asmamen eta umore-senak egia ainbeste bizitasun eta apaingarriyantzi ezkero, ez da iñork egia ala guzurra ete dan yakin dagikenik. Gai sakon bateri ekitendautsonean, bere goi-argiak eroanda aboa berotzen yako, ta orduan biribillak botatzen ditu ortik yatorko Agobero izen-goitia.

Gorputzez bardingoa, soskoz argal eta itxura atsegiñekoa, begi baltz bizi ta sarkorrak dituzlema-sur batek aldenduak, beean abo mee arin eta irrikoia igitzen yakola ortz zuri-disdiratsuak ondoan. Bere zeregiñetan txit arduratsua da ta sendiarekiko guztiz atxikia.

Agobero ezagutu neban egunean, errian zear niñoan barriren baten billa gure illerokoargitaratzeko, ta orra or enparantzako leio batean kokatzen nintzalarik, barrutik etorkoabots atsegin batek nere yakin-miña iratzarri eustan. Aruntz begiratu eta bizargin begiztatu neban aulkian egoan Ogerleko ez-izeneko gazte bateri ulea moztuten eutsola. Le go aldiz, Agobero aundiaren aurrean nengoan.

—Bai mutil —Ogerleko'ri esaten eutson artaziak krisk-krask erabiltzela— zuek legorreko ez dakizue egizko ekaitz bat zelangoa dan. Ikusi ba'zendu Ipar Amerika'ra giñoazala beintean artu ginduzan ekaitza...! Olatuak orko eleiz ori baiño aundiagoak ziran. Egunak igaro ziran baiñan itxasoa gero ta zakarragoa biurtzen zan. Uiñek itxas-ontzi guztia garbitzen ebe Ontzi-gizonok iru egunez lan eta lan, nekearen nekez unaturik eta lorik-ezagaitik, amiltzorian gintzazan. Eta turista gaixoak? Aiek azkenetan ebiltzan. Ordurako uiñak Lizarmendibaizen aundiak ziran, eta txangolariek (turistek) gexotegiko botika guztiak amaitu izan ebzan. Gaurko eguna bai'litzan gomutaten naz, zelan Eskupeko izeneko zekentzar batek, (inozgizoneri iñoiz eskupekorik emoten ez zekien batek), osagilleari larriak ez botatzearren, sendabat eskatzen eutsola. Baiñan itxas-miña kentzeko pildu guztiak amaitu izan ziranez, gure osgilleak, ben-benaz esan eutson ortzen artean zidarrezko txin bat ipintzeko. Eskupeko iñudeak gure osagillearen umoretasuna ez eban ulertu, ta agindua bezela egin eban. Alako batontzi-gaiñean zegoelarik, ustekabez gora-galeak etorri yakozan. Eskupeko adoretsua, gabildurgabe baten kemenaz bere zidarrezkoa zainduten saiatu zan, ortzak aren inguruan tutuaz. Baiñan gizon kementsuek bere, batzutan burruka galtzen dabe, ta orobat Eskupeko ausarditsuak zidarrezkoarekin batera, lau ortz eta barrukoa galdu ebazan. Bost ardura bat ortzena, baiñan txanponarena...! Ikusiko ba'zendukean Eskupeko gaixoaren naigabea ta nekak galdutako zidarrezkoagaitik...! Nekez ingurukoek aal izan eben aren atzetik mutil ez eitean.

Baiñan goazen gure arira. Gauzak gero ta txarrago yoiazanez, itxas-gizonok eta txangoriek ordezkaritza bana, ontzi-nagusiagana bialtzea erabagi genduen, arteko bat ni izanik. gusi mai baten ondoan egoan zenbaketa sakonak egiten. Gure naiak entzunik, luma bat ta mai-gaiñean zetzan itxas-mapa batean, arduraz beterik gurutz bat eratu eban. Danok zabalik begiratzen genduen.

—Gure ontzia emen bertan aurkitzen da ta dagoen kinka larrian, ezin dagike luzaro iraun. Ikusten dozue baiñan kurutz ondoan dagoen orban txiki au?

Izan bere, kurutzetik ez urrun orbantxu baltz bat ikusten zan.

—Ara ba... —yarraitu eban nagusiak— orbantxua ugarteren bat izatekotan, laister bete eta onik urtengo gara... baiñan euli baten korotza ba'litz, gureak egin dau!...

AGIÑALDE'KO TXEPETXA

Ama! Ekatzu ogia ta Baserri-Chobil!

Eskatu BASERRI

CHOBIL

Txokolaterik gozoena.

Esneagaz egindakoa.

Neska lirain eta mutil gordin-bizkorrak jaten dakiena

KIROLAK

OLSA-S.V.A.C. TALDEKO MUTILLEN EGIKIZUNEN BARRIAK

AGUILERA'tar Mikel

Tetuan'en jaio zan 1950'ko Dagonilla'ren 18'an. Bere lenengo arinketak 1966'ko ibilaldian egin zituan, urte onetan arinketa bat irabazi ta Bizkai'ko taldeagaz España'ko Laterri-txapelketara joan zan. 1967'an 5 arinketa irabazi ta laterriko txapeldun geratu zan Bizkai'ko taldeagaz. 1968'an 14 arinketa irabazi ebazan, euren artean Arrate'koa ta «Pre-Olimpica» deritxoen. 1969'an «Goimar» taldeagaz 9 bidar izan zan irabazle. 1970'an «Kas»'eko taldeagaz jokatzen dau, emen arinketa bat irabazi eban, ta Bizkai'ko taldeagaz, laterriko txapelketara joan zan.

* * *

AIZPURU'tar Iñaki

Urrestilla'n jaio zan, 1949'ko Garagarrilaren 21'an. Bere lenengo arinketea 1966'an egin eban, gero 1967'an iru bider lenen izan zan, ta Gipuzkoa'ko taldeagaz, laterriko txapelketara joan zan. 1968'an «Peña Elorza» deritxoen taldeagaz 10 arinketa irabazi ebazan. 1969'an «Casera» taldeagaz, arinketa bi irabazi, ta urte onetan be laterriko txapelketea jokatu eban Gipuzkoa'ko taldeagaz, baita, Gipuzkoa'ko txapeldun geratu be. 1970'an «Kas» taldeagaz jokatu eban, emen bi bidar izan zan irabazle.

* * *

ALKORTA'tar Joxe Mari

Azpeitin jaio zan 1948'ko Bagillaren 18'an. Bere lenengo arinketak 1966'an egin zituan. 1967'an «Green-Fish'eko» taldeagaz jokatu eban, ta 1968'an arinketa bi irabazi zituan. 1969'a «Kas» taldeagaz igaro eban. 1970'an 4 arinketa irabazi ebazan, ta Laudi'ko txapelketea be egin eban.

* * *

AREITIO'tar Jenaro

Atxondo'ko Aranean jaio zan, 1951'ko Urrila'ren 11'an. 1968'an lenengo arinketak egin zituan. 1969'an ta Amorebieta'ko taldeagaz, arinketa bi irabazi. 1970'an ta talde onekin, 9 bidar izan da irabazle, Bizkai'ko Federazioko txapelketea irabazi ta Gipuzkoa'koan 3 gn geratu zan.

* * *

AYASTUY'tar Santi

Urretxua'an jaio zan 1949'ko Lotazillaren 30'ean. 1968'an lenengo arinketak egin zituan; urte onetan, bein irabazle izan zan. 1969'an «Kas» taldeagaz jokatu eban ta aldi bitan irabazle izan zan, ta Gipuzkoa'ko taldeagaz laterriko txapelketara joan zan. 1970'an barriro «Kas»'eko taldeagaz, 4 arinketa irabazi ta bigarren «Cinturón Internacional de Cataluña»'n, ta orain Gipuzkoa'ko txapeldun da. Urte aretan be laterriko txapelketara joan zan, Gipuzkoa'ko taldeagaz.

* * *

BENGOA'tar Mikel

Bergara'n jaio zan 1947 Orrillaren 5'an. 1965'an asi eban txirrindularitza E. D.'ko taldeagaz, iru arinketa irabazi ebazan, ta bigarren Gipuzkoa'ko txapelketan, baita laterriko txapelketan be bigarren geratu zan Gipuzkoa'ko taldeagaz. 1967'an bein izan zan irabazle. 1968'an aldi bitan egin eban lenengo. 1969'an sei arinketa irabazi zituan, ta Gipuzkoa'ko txapelketan bigarren, Orduan gudaritzara joan bear izan eban, alan ta be 1970'an arinketa bi irabazi zituan.

* * *

ETXEBARRIA'tar Luis Mari

Gernika'n jaio zan, 1950'ko Epaillaren 14'an. 1967'an asi zan «Gernikesa» taldeagaz. Urte orretan zazpi bidar izan zan irabazle ta Bizkai'ko taldeagaz laterriko txapelketea irabazi eban. 1968'an 14 bidar irabazi, ta laterriko txapelketan barriro lenengo izan zan. 1969'an «Kas»'eko taldeagaz iru arinketa irabazi zituan, ta laterri'ko txapelketara Bizkai'ko taldeagaz joan zan. 1970'an barriro «Kas»'eko taldeagaz lau bider irabazi, ta bigarren geratu «Vasco Navarro» Txapelketa nagusian. Barriro Bizkai'ko taldeagaz laterri'ko txapelketara joan zan.

* * *

ELORIAGA'tar Xabier

Abadiano'n jaio zan 1947'ko Lotazillaren 3'an. Lenengo, 1965'an «Karpy» taldeagaz asi zan, urte orretan 13 arinketa irabazi ta laterriko txapelketea Bizkai'ko taldeagaz. Bizkai'koa bere izan zan. 1966'an sei bidar irabazle izan zan «Galletas-Coral»'eko taldeagaz. 1967'an «Kas»'eko taldeagaz zazpi bidar irabazi, ta laterriko txapelketea bere bai Ibizan, Bizkai'ko taldeagaz. 1968'an barriro «Kas»'eko taldeagaz amaika bider izan zan lenen, ta bigarren laterri'ko taldeagaz, urte orretan irabazi eban, baita, «Vuelta Valladolid» deritxoena bere. 1969'an «Almar-Hoyo» taldeagaz 5 arinketa irabazi ebazan, andik gudaritzara joan bear izan dau, ta Sahara'ran, orain amaitu gudaritza.

* * *

IBARLUZEA'tar Migel Angel

Ispaster'en jaio zan, 1947'ko Jorrillaren 23. 1967'an asi zan jokatzen, birritan irabazi eban. 1968'ko urtean arinketa bat irabazi ta 1969'an gudaritzara joan zan, au amaitutzean, 1970'ko urtean, Bizkai'ko txapelketea irabazi eban, Galdakano'n.

* * *

TRUEBA'tar Xabier

Galdames'en jai zan, 1949'ko Bagilla'ren 24'an. 1964'an izan eban bere lenengo urtea txirrindulari lez. 1965'an 4 arinketa irabazi ebazan. 1966'an barriro be 4 bidar izan zan lenen, ta laterriko txapelketea jokatu Bizkai'ko taldeagaz. 1968'an ez eban irabazi bat bere. 1969'an, 3 arinketa irabazi ebazan, laterriok txapelketea jokatu eban Bizkai'ko taldeagaz, ta urte orretan gudaritzara joan zan.

* * *

GUIETRREZ'tar Manuel

Bilbo'n jaio zan 1953'eko Azillaren 2'an. 1969'an lenengoz jokatu eban ta 3 arinketa irabazi, bai ta laterriko txapelketea jokatu bere, Bizkai'ko taldeagaz. 1970'an Amorebieta'ko taldeagaz jokatu eban.

* * *

MARTINEZ'tar Paulino

Candiñanos'en jaio zan. 1952'ko Dagonillaren 31'an. 1969'an jokatu eban lenengo aldiz, 13 bidar irabazle izan zan. 1970'an Mungi'ko «Goimar» taldeagaz jokatu eban, 8 bidar lenen izan zan, ta laterriko txapelketea jokatu Bizkai'ko taldeagaz.

* * *

OLABARRIETA'tar Pablo

Asúa-Erandio'n jaio zan, 1952'ko Urtarrilla'ren 12'an. 1967'an urten zan lenengo aldiz. 1968 eta 1969'an «Bilbaina»'ko taldeagaz ebillen. 1970'ean Mungi'ko «Goimar» taldeagaz jokatu eban, aldi bitan irabasle izan zan.

* * *

PADILLA'tar Zelestino

Arroyo'n jaio zan 1952'ko Jorrailla'ren 11'an. 1968'an lenengo aldiz jokatu eban, ta arinketa bat irabazi. 1969'an Mungia'ko «Goimar» taldeagaz jokatu eban, bein irabazle izan zan. 1970'an ta lengo taldeagaz 3 arinketa irabazi zituan, ta laterriko txapelketea jokatu Bizkai'ko taldeagaz.

* * *

URIARTE'tar Xabier

Luyando'n jaio zan, 1953'ko Orrilla'ren 3'an. 1970'an jokatu eban lenengo aldiz «Karpy» taldeagaz, ta iru bidar izan da irabazle.

* * *

CALVO'tar Francisco

Valladolid'en jaio zan 1953'eko Urtarrilaren 29'an. 1968'an jokatu eban lenego aldiz, 18 bidar izan zan irabazle, ta urte orretan laterriko txapelketan bigarren izan zan. 1969'ean Mungi'ko «Goimar» taldeagaz jokatu eban ta 5 arinketa irabazi, bai Bizkai'ko txapelketa bere. 1970'an barriro lengo taldeagaz birritan izan zan irabazle, Bagilla'ren lenengo egunetan jausikera gogor bat izan eban, ta aspaldion ezin izan dau jokatu. 1971'an azkenerantza barriro asiko ei-da.

* * *

LAKA SALABERRI'tar Jose Luis

Lutxana-Deusto'n jaio zan 1956'ko Bagilla'ren 17'an. Gazte dan ezkero oraindio ez dauka baimenik, baiña bere sasoikoan jokatu al izan dau iru alditan, ta birritan lenen geratu da.

* * *

MADARIAGA'tar Xabier

Au zuzendariaren anaia da, azken urte onetan, bere gogoa, txirrindularien artean ibiltea da. Bere anai Mikel'en laguntzaille izango da «Olsa»'n.

XABIER'K



MADARIAGA, «OLSA SVAC» EKO ZUZENDARIA

Madariaga'tar Mikel, Lemoiz'ko erri politean jaio za 1944'ngo Azillaren 25'ean. Bere gogoa txirrindularien artean egon da beti. Lenengo «Zeus», «Karpy»'n izan zan, zuzendariaren laguntzaille, andik «Fagor»'era aldatu zan ta an egon zan etxe onek txirrindulari taldea itxi arte. Bere ardurapean, Zubero, Felix Gonzalez, Elorriaga, Lazkano ta abar, izan ziran, danok dira oso ezagunak.

Etxe ori itxi ebanean, gazteen beste talde bat artu eban bere ardurapean. Emen urte bi egin zituan, Mungi'ko «Goimar» orretan, eta or be, bere egikizunak txalogarriak izan ziran. 1969'ko ekiñaldian 32 arinketa irabazi ebezan bere mutillak, beste 40 bigarreneko, 25 irugarreneko, baita bertoko iru bere, Bizkai'ko taldean, Españi'ko txapelketea jokatzeko joan ziran, ta urte orretan Bizkai'ko txapelketa bi lortu ebazan: bata A'koen maillan, ta B'koegaz bestea. Orain «Olsa Svac» sortu barria dan taldeagaz dago zuzendari, emen be ba-dauka zeregiña ugari. Txirrindulari asko daukaz ta danak aurrerakorrak. Egun baten esan eustan: «Ikusi dozu zelango taldea egin dotan? Ia danak dira euskaldunak». Bai, ta euskal gogoa ez da faltako txirrindulari talde onetan. Ia ba aurten zorionik izaten dozuen! Esan eustan, baita, aurtengo lenengo ibillaldietan ez dabela zorionik bat bere izan, baiña pozik aurkintzen dala, mutillak ondo dabiltzela ikusirik. Jarrai dagiela ba olan!

Gure galdera batzueri be, jator erantzun eutsan:

—Nork egin dau taldea?

—Taldea Xebier Fuentes'ek eta biok egin dogu, nik neure eretxia emoten neban, gero beragaz egon ta egoki ziranak artu.

Nik ba-dakit, neu be zure eskuetan egona nazen eskero, zelan erabiltzen dozuzan txirrindulariak; ta zer esango dogu ba Xabier Fuentes engaitik? Neure eretxia emongo dot: Txirrindularien eiztaririk onena dala esango neuke inguru guztian, Langarika'ri berea emonda. Fuentes'ek be bere ondoan, orretarako maizu ona euki eban gazte zala Mungi'ko taldeagaz ibilten zanean, aren eskola guztia daukala esango neuke; maizu au Arenaza jauna izan zan.


—Bizkai'ko Federaziñoak asko laguntzen dautsue?

—Bai zera! Geienean oztopoak ipiñi, euren gaiñetik jarri ez gaitezen-edo... «zur asko dago or be!»

Ni be orretan nago, aurrean ondo agertu ta ondo geratu, atzetik eurak gura dabena egin. Sarritan txarto, beste txirrindulari talde batzuekaz batera gauzak ez erabiltearren. Orreikaz batzartu ezkero norberak gura dabena ezin egin izaten da-ta...

Ba-dagoz ainbat arazo Bizkai'ko Federazioan. Ea ez diran izaten oztopo zuen naiak beteteko. Zori-ona izan dagizuela aurtengo urtean ta aurrerantzean! Ta beste bat arte, AGUR'etik.

Goirigolzarri'tar Xabier



Ezkerretik eskumara Ayastuy, Trueba, Alkorta, Bengoa, Elorriaga, Etxebarria, Aizpuru, Ibarluzea, Areitio, Aguilera, Olabarrieta, Padilla, Gutierrez, Uriarte, Martinez, Laka, ta Mikel Madariaga (zuzendaria).

Boutique

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tendería, 15 eta 16

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

GAURKO GURE ERES-GIROA

(ARREGI'tar Andoni'gaz alkar-izketa)

Euskalduna beti izan da eres-zalea, musikalaria. Antxiñakoak ez gitxi eta gaurkoa, bear ba'da, geiago.

Arregi'tar Andoni euskaldun jatorra ta benetako eres-zalea dogu. Nori itaunketa bat egin, gaurko giroa jakiteko gurariz, berari izan ezik? Bera dogu abes-talde, orfeoi, eder baten zuzendari, San Anton orfeoiaren buru.

* * *

Guk zarrakandik artu dogun eresia, musikea, berezia izan da, bai Eleizakoa baita errikoa bere. Gaur euskaldunok eres-zale asko daukaguz, baiña ete daukagu euskal-eresirik, geure errraren musikarik?

—Kondairan aurkitzen doguzen eresi batzuk benetan euskaldunak dira, beste batzuk ostera erbestekoen antz-antzekoak. Ba dagoz, baita, beste batzuk erbestetik artuak izan arren, euskaltasuna artzeko apur bat aldatu diranak. Esaterako: *Uso zuria* Alemania'tik etoria da, baiña aldatuta dago, euskal-kutsua artu dau.

—Gaur gure errira sartzen diran eresiak garbiago sartzen dira, geienetan euskal-kutsua artu barik datorkuz. Au zergaitik izan leiteken errez aditzen da: irratiak eta telebiziñoak eresiaren aurrez-aurre, bitarteko barik jarten gaitue.

* * *

—Labur-laburrean, euskal-eresiaren berezitasunak zeintzuk diran esan zeinke, Andoni?

—Batzuk bai, beintzat: Euskal-eresia beko doñuan (tono menor) egoten da, ituna izaten da, eztitsua ta meloditsua be bai, eta noizean bein neurria alde batera izten dau.

»Ba diñoe euskaldunak eresi alai baten jabe dirala bere, esaterako dantza-eresia. Baiña alai-antzeko eresi oneixek bere, barru-barruan, melodi-ituntasun bat daroe.

»Zortzikoa bera be, jatorriz, euskalduna ez da. Iparragirre'k ekarria da eta ereslari onek apur bat aldatu egin eban; ituntasun bat emonaz euskal-kutsua sartu eutsan. Jatorriz, euskal-eresia ezpata-dantzearen doñua da eta bere neurria 7 × 8.

* * *

—Gure Erriak euskal-eresia ala erbestetikoa ete dau naiago?

—Orretan ez daukat zalantzarik, ondo jakitun nago. Gure erriak euskaleresia dau naiago. Eta euskal-eresien artean be antxiñako doñu zarren sakontasuna gura dau. Esaterako *Egun da Santimamiñe* gure Erriak zoraturik entzuten dau.

»Jokera onek alderdi on bat agertzen dau: nortasuna ez dogula galdu, euskaltasuna barruan daroagula. Baiña ba dauka, baita, bere alderdi txarra be aurrerapidea gatx egiten jaku.

* * *

—Laterri arteko eresien artean, zein maillatan ipiñi zeinke gurea, berengoan, erdikoan ala goikoan?

—Ye-ye-giroko eresia konturatzen ba'dogu, gure eres-zaleak ez dot uste nagusi diranik. Orretan be eres-zale onak ba dagoz, oraitiño.

»Orkesta-giroan, ostera, gorengo maillako egilleak daukaguz, esaterako Escudero ta Garbizu.

* * *

—Liturji-aldakuntzaren indarrez, gure eleiz-eresiak galdu ala irabazi egin dauala uste dozu?

—Zalantza barik, irabazi egin dauala esan bear. Lengo eleiz-eresia loeresia zala esaten eben. Eresi-lan oso onak, oso ederrak, orduan Eleizeak ez ebazan onartzen.



San Anton Abesbatza ta Arregi zuzendaria Olaizola zanaren omenaldian, berorrekin.

»Gaurko eresi-giroa eleizetan oso atsegiña da, melodi-aldetik be bai, baiña, batez be, eres-kin eta soiñu barriak onartu diralako. Lenago organua ta armoniua, besterik ez zan joten.

* * *

—Erri-abestiak abest-itza, letrea, aldatuta liturjira sartzeari zer deritxazu?

—Ondo deritxat. Eleizeak erritik artu bear ditu oiturak eta eresia be bai, erri-zalea eta erritarra izan bear dau ta.

»Larregi ori egin ezkero, orraitiño, eres-egilleen barruko etorria ez leiteke indartuko.

* * *

—Euskal-mezea ikasten zabiltzela entzun dot. Nork egiña ta zelakoa da meza ori?

—Egilleak asko dira, ez bat bakarra. Melodi-aldean, len aitatu dogun Garbizu be erkideko da.

»Ots-alkartzea, armonizatzea, Felix Barturen pasiotarrarena da.

»Bost abotsez abestuten da eta organua, txistua, txirulea, txilibitua, albokea, txalapartea, panderetea, dultzainea, adarra ta beste ereskin batzuk lagun dirala.

»Eder-lan lez, oso ona da, gaurkotasunez beterik dago eta ots-alkartzea be orain-aldikoa dauka.

»Mezearen zatiak konturatzen ba'doguz, dana dakar, erriaren erantzunak eurak be bai.

»Erriak bakarrik, abots batera be abestu leike, melodi utsa artuta.

»Euskal-kutsuz beterik dago dana, baiña zati batzuk, gai oneri begira, oso ondo egiñak dira. Bertsolarien doñu batzuk be agertzen dira.

* * *

—Ta, azkenez Andoni, San Anton abes-talde, orfeoiaren zuzendari zaran ezkero, Vaticano'ko bigarren Eleiz-batzar ondoren, zelakoak izan bear leikee eleizetako abes-taldeak?

—Eleiz-batzarrak asko nasaitu dau abes-taldeen bidea. Gaur asko errezagoa da talde oneik egitea.

»Alde batetik lengo abestiak abestuteko gatxagoak ziran, trebetasun geiagokoak. Gaurko abestiak errezagoak, errikoiagoak dira.

»Len andrazkoak erkide izatea debekauta egoan. Orain ez. Baimen onek taldeak osotuteko erreztasun aundia ekarri dausku.

* * *

AGUR'aren irakurle guztien izenean, eskerrik asko, Andoni. Eta... urren arte.

GAMIZ

ARJENTINA'RANTZ BEGIRA

EUSKAL ERTILARIEKIN ALKAR-IZKETAN

Jon Billelabeitia, gizon gaztea, Mungia'n jaio zan ta Arjentina'n bizi da. Gure adiskide onek bere erti bearrakin Kondebaso, Mungia ta Euskal-erria goratzen ditu.

Bere izen eder au argazki barrenean ebala, Arjentina'ko izpar-ingiak ertilari onen barri emoskun.

Euskaldun guztientzat ta batez bere Mungiarrentzat pozgarria da, geure anai bat Arjentina'ko lurraldeetan entzute aundia artuta egotea. Mungia'n «Kondebaso'n» jaio ta arturiko almen bikaiñak Amerika'n zabaltzen diardu.

Bera ta bere egitea agertu bearrik ez dago diño Amerikar izpar-ingiak. Gizon zintzo ta aspertu eziña, biderik bide doa irudi billa, makiña baten barruan egokitasunik onenakin artzeko. Bere berezko ikusteko erak ta esateko egokierak arrituta gaukaz.

Jon Billelabeitia zine-egillea dogu. Bizitza negurriz daroana ta nortasun aundikoa. Gauzak ikusi ta makiñaz artzen artistea ben-benetakoa. Baita ba-da buru argi sortzaille bat bere.

Bere bearrak ain eder ta txalotuak izan ziranez, alkar-ikuste au egin eutsen bere pentsabidearen barri jakitearren.

* * *

—Jon, pilmatu edo zinteratu dozun lanik onena zein dala uste dozu, ta azkenengoa zein da?

—Nire lanik onena zein dan, ezin esan neike, ori zuek erabagi bear dozue. Al dodanik ondoen egiten alegintzen naz. Nire indar guztiak orretan darabildaz. Bear bat amaitukeran, aur baten jaiokeran lez, ustuta geratzen naz. Nekatuta. Baiña barru poz aundiak ditudala, esan bear bot.

—Zure kezkeen ardurarik asmetan dozu lagunen artean ta zeure bearrean saribiderik salerosietan?

—Bear onekin bizi naz. Ta ori ta geitxoago lortu dodala uste dot. Zine salerosietzaz berba egitea ez jat atsegin. Zine zintak egitea ta lukainkak egitea ez da bardin, naita, iñoz, antzeraren bat izan. Zerbait egitea da, bear dana. Ta orren ardurea artzen asi da jendea.

—Zer deritxazu zine arloari, a bere zabalkunderako ze etorkizun ikusten dozu?

—Gaur eguneko artedun erarik onena zinea da ezpairik bage. Era berean, jendeagana eltzeko, era egokiena da. Gauzak azaltzeko era legez, beste guztiak baiño osoagoa da.

—Erti guztietan zeure sailla dala onena, uste izatearen gaisoa ez ete daukazu?

—Ez. Gauzak diran lez, ikustea nai dot. Idatziz agertzen diran jakintza oiturezkoak, aldatzen doaz. Lengo era orrek, beste era barri batzuen bidez goituten doaz. Au, olan, ontzat artzen ba dogu, pausu aundi bat emoten dogu. Ta irudien bidea aurrenengo tokian daukagu. Eginpide onek atzerarik ez dauka. Argi ikusten dogu. Zine, urrutikuskin ta edozein erako zabalkundeak irudi bidez bonbakatuten gaitue gau ta egun. Ta gogorki egin bere erruki bage. Irudiaren gorengo maillara goaz.

—Zineko era ez-bardin guztien artean, zein da zuri geien tiratzen dautzuna?

—Zine guztia atsegin jat. Baiña zineak ditun sakontasun ta zertzelada guztiekin, onen barri jakiteko, milla urte bearko neukez. Ta ordurako zinea il egingo da. Ori-ta guzti be, neure berarizko zaletasun batzuk ba-ditut.



»Argi-bidezko zinea atsegin jat. Baiña astun ta sakona danez, geroagorako izten dot. Orain naiago dot zine aitorrezkoa ta onen artean jakiña ba agirizkoa (documental). Zine era onek goiko mailletara igon bear dau. Ta munduko gizonen artean jakintza agerzeko biderik egokienetakoa da, begiz edozeiñek ikusi ta errez ulertutekoa da-ta.

—Aspalditik ezagutzen zaitut. Ta, beti, edersentzun-zale zakusdaz. Gauzen berezko izatea ez ete dau okerbideratuten zure zaletasun orrek?

—Guztiok ditugu geure gaisoak. Nirea au izan bear dau. Nai dozun legez deitu egiozu. Nire eder-sentzua ikaste bidezko edo bidegabekoari zor dautsodala deritxot geienbat. Gazte-aroan irudigintzan asi nintzan. Geroago margolari bidea artu neban. Ta azkenez argazki ta zine bidea artu nituan. Era ortan, ikusi, ezagutu, onartu ta gauzen ederra beste batzueri emotera eldu nintzan. Gauzen berezko izatea edertasunaren zerbaitekin ez dala itxusituten etsita nago. Gauzen berezko izatean, beti ,dago euren barruan edertasun altziren bat gordeta. Simaur pillo bat eraskustea nai ba'dogu, era askotara egin geinke. Baiña edertasun bat ari ezarten badautsagu orrek aren izatearen muiña ez dau aldatuko.

—Zeure pentsakeraz eta azaldukeraz, olerkari gaiago dirudizu zine egillea baiño; oker-bidea a dozula artu izango-ta ziur zagoz?

—Olerkira eltzeko bide asko dagoz. Zinea olerkitik at ez dago. Nik olerkirik ez doidazten. Neure makiñeakin, ta batez bere bizitzako egite guztiekin olerkia egiten alegintzen naz. Komenentzizko olerkia gorrotdot. Iguingarri ta itxusi diran dotorekerekin ezingo nintzake alkar aitu neure kideekin «Anbrosi ta edari gozoekin» etzakidaz etorri Gaurko olerkiak, ulertu al izateko, astindu kezkatu, orzkatu edo zaplatekoak emon bearditu.



—Zu ezagutzen zaituenak diñoenez, erremenduta ei zagoz. Zure aurreko erantzuerak erresumori ez al dau agertzen?

—Ez ezeren eta ez iñoren aurka erresminduta egoteko ziorik daukatenik, ez dauste. Gizadiak orain arte, ondo, artu nau. Neuk be gizadia maite dot. Etsita be ez nago. Bizitzan neure elburuak lortzen ba noa. Neure buruaren jabetasun guztiakin bizi naiz. Neuri atsegin jatana, egiten dot eta neure denboraren jabe naz.

—Ta orain urreko ta geroko zure asmoak zertzuk dituzu?

—Neure asmoetzaz jardutea ez jat atsegin. Au bizitzaren ganoreak eskatzen dau.

Euskerea: Solozabal'dar Pauli

LANGILLEAK

Ekonomia gizonaren otseintzarako

Sindikalista ospatsu batek esana da:-«Langilleak kargoak langilleak berak sortutako eralguntzak bide dute izan, langilleak eragiñak eta langillearen erabilliak».

Gizonak sortuko dituzte sindikatoak, baiñan ez gizonaren laguntzarako bear dute izan. Ez dau ulertzen gizona Laterriaren otsein serbitzari, politikaren otsein serbitzari edo ekonomiaren otsein. Baizik guzti onetarako gizonagan bear dugu itxaropen. Erri-agintza da oiñarri sendoena laterri azkeak izateko. Eta CMT (Confederación Mundial de Trabajo)'ko sindikalistentzat demokrazia orren lan elburumailla gizonagan siñistea omen.

Oiñarri onetaz abiatu bear omen dugu ondozoari erabaki azkar bat arki al izateko. Eta erdator aurreko idazkian genionean etorkizunari begiak ipiñi bear genizkiola. CMT'ko lendakariak argitzen bai-dizkigu azalpen auek: «Pakea, demokrazia eta onetatik gordetako diruketen aldatzea sozialaurrerapenerako. Erri-agintzari indar emateko eta irabaz-pideari laguntzeko eratu duten politika aldaratia salatu dezagun, ez dalako gauz Irugarren Mundutik laterri lantegiztatuetara dagoan aberdintzeko».

«Baiñan gizonaren otseintza-obean ekonomia jartzeko, araupean jarri bear da, gaitu, sorkera eta maizkigun legeak al danean menderatu eta gaitzatajutu gaur dituan egoera lotuetatik ongi gomendegon dedin».

CMT'ko lendakariaren itzez aldaketa ori ba-damaio sindikalismoari aztertzeko oiñarri bat «erabaki bear dan arazorik baliotsuena gizonaren azkatasuna da, gizon guztiena berdin gogoari bai eta materiari buruz» diño.

«Bearturik gaude —jarraitzen du— arazo muiñetaraiño jotzera, ta batezere ontzat ar gendekean jokabide bat arkitzea. Bearrik, ongi ulertuta, sozialismo batek eman genezakigun ona artzagero emendik gizonaren eskubide guztiguztieri bai erakutsiko duan eraketa politiko batean alkartu. Au da, ez dedilla asarre etorri sozialismoa gure azkatasun eskubideaz. Eta agintza orrek ez dau ezer ikustekorik izan 'errepublika popularrak' azken nai diguten karikaturaz, ez eta beren azken-eldu ekonomiaren onura bakarrik billatzen duten demokrazia izenekoaz».


CMT mundu-guzikotu egiten da. Leengo lazaarrak erabat baztertu gabe, arian arian bide berriaz lotu nai ditu. Eta batezere, biarko, etorkizunerako sindikalismoaren antolaketa berrituak eskatu ditu. Sari utsaz edo lan-aurrerapenaz bakarrik ez ditugu jantzi bear langilleen adimen ta elburu. Etorkizunari begiratu, asarre egon gabe egungo eguneroko gure jokabide ta ekintza larriaz.

«Epeen berezitasun bat loritzea-edo nai da. Gaur, baditugu aski langai jokabide bat eratzeko gizonezial-aurrerapenari buruz, bizitz obeagoari buruz, demokrazia, azkatasuna eta pakeari buruz. Ekintza jarraitzea eta garaitzaraiño eramatea dagokigu bearkizun lenengo bezela».

Ain zuzen, ekonomiak gizonaren otseintzan bear du izan. Baiñan ekonomiaz batera leninismo emango ez digun zeredozerren bearrean arkitu da gizona: gizonaren azkatasuna, demokrazia, ezentza eta pakea bereganatzeko.

OLAZABAL'DAR XABIER

Ongi etorri



AURRAK jaio baiño len
giza-eskubide osoak daukoz.
Orretariko eskubide bat, auxe:
etxean bizimodu atsengingarria.

Etxean etxekoak
ondo artu bear dabe aurra:
arduraz eta etsegiñez.
Aurra, aurra izan arreen,
konturatu egiten da
ondo artzen daben ala ez.

BIZIMODU ATSEGINGARRIA AURRARENTZAT

Aurraren beste eskubide bat
auxe: ikasi,
Bizimodu atsegiñean ikasi.

Gurasoak irakatsi bear dautse:
bakean, poztasunez, alkar ondo artuez,
maitasunez...
eta bideak argi ta garbi erakutziez,
eztabaidan, asarrean, txarrera,
ez iñoiz irakatsi.

Ez eskatu aurrari larregi,
neurriz baiño.
Aurra ez aurrean erabilli beti:
ez dana ukatu, ez dana galerazo.

Aurrari gozo egin berba.
Berbak baiño mosuko keiñuak
ulertzen dauz obeto aurrak.

Eta zuek be, ama gazte orrek,
berbakaz ezin esan dozuzanak,
barru-barrukoak diralako,
begi, abots eta eskuekaz
obeto agertuko dautsazuz.



Ez da

Banco de Bilbao onentzat bezero txikirik

BB

Autorizado por el Banco de España n.º 8065.

IDAZTI BARRIAK

Egillea:
Don José Miguel BARANDIARAN.

Margolaria:
Don José Miguel BARANDIARAN.

Izena:
Estelas funerarias del País Vasco (Zona Norte). Edición bilingüe.

Argitaratzallea:
TXERTOA. Plaza de las Armerías, 4, San Sebastián.

Irarlea:
Icharopena. Victor Pradera, 2. Zarauz. 1970.

Apainlaria:
Luis Pedro PEÑA SANTIAGO.

EGILLEA

Gure irakurleen artean Barandiaran abadea nor dan ez dakianik ete dago? Ez dot uste.

Askok beragaz, gitxi asko, artu-emona be izan dabe. Batzuk guda-aurrean Gazteizko abadegai-etxean irakasle zala, beste batzuk atx-zuloetan lan-jantziz jantzita dabillela, beste batzuk, baita, bere berbaldi txalogarriak entzun dabezenean.

Barandiaran, esan bearrik be ez dago, euskaldun eta euskaltzale zintzoa dogu eta beti izan dogu, eta gure erriaren izarea aintzat artzen ez dabenak samintasun aundiak emon dautsoez, bai jazoera txikietan, egunerokoetan, baita aundietan be.

Eta euskaldunen artean Barandiaran, izar artean eguzki ederra lez, agertzen jaku; ain zuzen be euskaldunok sakonetik aztertu ez dogun sailla baten: billaketan, inbestegaziñoan. Atz-zuloetako gure aurretikoen goraberak aztertzen, Europa guztikoen artean be, nagusienetarikoa dogu. Eta, au be oso txalogarri, bere jakituri sakona, geienez, euskaldunen aurretikoen ikasketara ezarri dau. Gure Erriak asko zor dautso Jose Migel'eri eta bere esker ona baten baiño geiagotan erakutsi dautso. Gogoratu azkenengo omenaldia, Ataun'en.

IZKUNTZEA

Liburu au izkuntza bitan egiña agertzen jaku: gazteleraz eta euskeraz. Onetan be jarraibide jaku. Zenbatek gure artean, baita euskera gaietan arduradun diranak, erdera utsean idazten dauskuen! AGUR'eko azkenenko zenbaki bietan gai oneri buruz zer edo zer irakurri zeinke, irakurle.

Baiña Barandiaran'ek bietara idatzi dausku: lenengo orrialdean Gipuzkoa'ko euskera ederrez, eta bigarrenean gazteleraz.

Euskaldun batek euskeraz idaztea berezkoa da. Baiña zergaitik erderaz be? Itaun oneri eratzuna, uste dot, edozein irakurlek emon leikio: Billaketa lana da eta billatzaillerik geienak ez dakie euskerarik. Zabalkunderako ba, bearrezkoa beste izkuntza bat, jakitunen artean dabillen izkuntza.

Gaia sakona ta gatxa izan arren, Barandiaran'en euskerea errez-erreza dogu, baita Bizkaiko irakurleentzat be. Bere izkereak, erreztasunagaz batean edertasun pozgarri bat be ba dau. Gaiñera berba tenikoak oso ederto euskeratuta dakarz.

EGITUREA

Zati bitan datorku liburua. Lenengo zatian berbak eta bigarrenean irudiak. Eun orrialde inguru berbentzat eta beste ainbeste inguru irudientzat.

Lenengo zatian; Atari bat, asteko eriotzeari buruz gogaketa, igarotzerako egiteak, illen bidea, opariak, janariak (illai), suak, illobiratzea eta ordu onetako bazkaltzea, illarria, agerkundeak, gogakeria, altara-arriak, ta azkenez illarrien billaketa sakon bat eta azken-itza.

Bigarren zatia 354 irudik osotzen dabe. Orrialde bakotxeko lau, baiña azkenengo orrialde bietan iru. Irudi oneik Paris'ko «Milnistére d'Etat» eko iruditegian dauken zenbakia daroe. Liburuaren azkenean irudi onein billa-bide osoa dator.


IRARKEREA

Liburua argi eta polito irarrita dago. Bear ba'da, irudiakaitik, apur bat karua izan leiteke, baiña euskaldunok onetan diru geiago eralgi bear dogula iñoz esan dot. Gaiñera, izkuntza bitan egiteak karutu ba'dau, ori be gauza bearrezkoa da.

Zorionak, ba, egilleari eta irarleari be.

OLAZAR MARTIÑ'EK

UMEEN - DEIA



«UMEEN DEIA» aldiskaria 1959'garren Aita Kaputxino Felipe Murieta'koak sortù zuan euskerari goraldi bat emateko. Aren iritziz: «bere izkuntza galtzen duan erria ayenatzen doan erria da». Eraberean zion: «Adiñekoak gogoausnartzera beartzeko ezerrez egokiagorik aurren asmakizun tolesgabeak baño».

Burutapen ontatik sortu zan «UMEEN DEIA» aurren aldiskaria. Sei urte gero, Diez de Ulzurrun Apez Jaunak idazti al izan zuan: «A Felipe'k egindako lana bai bikaña! Zenbat nexka ta mutiko genituan Euskal-Errian irakurtzen eta idazten zekitenak? Gutxi, esateko. Orain, eunka ta eunka dira umeak Euskal-Erri osoan beren euskalidazki lanak «U. D.»'ra bialtzen dituztenak, gure Filipe'k asmatu eta zuzendutako «U. D.» aldiskariari. Lan ixilla, baño aundia».

«Euskalzain, idazle ta euskerazale guztiak batera goretsitako » **(V. Berriotxoak)** *aldiskariari, «NAPARROKO DIPUTAZION»'ak asiera-asieratik lagundu zion oparo, «PRINCIPE DE VIANA ERAKUNDEA»'ren ardurapean eta onen «EUSKERAREN ALDE SALLEA»'ren bitartez.*

A. Murieta il eta laster, **Jose de Artetxe'k** *idazten zuan: «Nik eztakit A. Murieta'ren errebista emendik aurrera aterako dan edo ez, baño oraindiño aterakoekin liburutxo bat egitia merezi luke. Folkloristantzak oso atsegin eta erakusgaia izango litzake».*

Lenago gogoratu zitzaion ori A. Murieta'ri, eta orain argitaltzen dezun idaztia berak Iruña'n, santuki il baño bi illabete aurretik, eman zidan agindua betetzeko. Emen aurketzen dizuet «U. D.», gaiak lekuan lekukoa ditula, ikaskizun zenbait oso jakingarriz aberastua, lagun ere eta leku izen arkibidez osotua. Ba-dira 800'gik gora. Euskalerriko bazter guztietatik, idazten duten idazlari txikiak, eta 1.500 baño geiago bere «idazlantxo» atsegingarriak. Emen arkituko dituzu, ezin obeki euskaldun aurre adirazi-ta euskelkien ezaugarriak, eta eusko-bizitzaren bereiztasunak: oiturak, erri-jakintza, ateraldiak...

Idazti au, ezer ta lenen, euskalzale berdin-gabea zan A. Murieta'ren oroimenari omenaldia. Danontzat izango da irakurgai atsegingarria, euskeralarientzat jakingarri askoren altxo ugaria, eta euskera-batasun-alde egiteko laguntzarik egokienetakoa. Eraberean, Ikastola, Ikastetxe eta Ikastetxe-Nagusietan, euskera jatorki ikasteko, euskal-lorategirik onenetarikoa. Txukun eta apain aurkezten zaigu, eta marrazki bikaiñez apainduta.

Argitaldari ta Banakatzalle: «Libreria CLARET», S. Francisco, 16. - BILBAO-3, 1971.

ESKATU:

Libreria «CLARET»
S. Francisco, 16
BILBAO, 3

edo

Ismael Torres, cmt.
PP. Corazonistas
Dos de Mayo, 11
PAMPLONA

IRUDIDUN ITXAS-IZTEGIA

LEORREKOAK:

Egillea, Garmendia ta Berasategi'tar Iñaki. La Gran Enciclopedia Vasca'**tik ate**rata 370 orridun idazti eder bat osotzen dau.

Itxas giroko itz geienak, guztiak ez ba'dira, bakoitza bere irudi argitzailleakin. Itxas-ontzi, itxas-bazter, itxas-zabal, itxas-sakon, arrain, odei, eguraldi, arau... ta itxas-gizonik ospetsuenak, bi milla argazki, baltz edo margodun, errezkadan.


Ba-dauz euskerak itxas-itz ugari eta bere-bereak; galduak-galdu tamalez, emen ditugu zaintzen alegindu bear garanak. Ta erbestetik artuak zenbat? Batzuk, ingelesetik artuak bost-bat-sei.


Bederatzi atal nagusitan banatua, azkenean bere iztegi osoagaz abadean jarrita. Ogeta-amasei agerbide arkibedean, billaketa errezteko.

Ez da aurrerantzean itxas giroko ezer azkorik idatziko iztegi onen laguntzarik barik, eta ikasketarako edo jakintza-azterketarako be lagun izango dabe. Ez, ez da txantxetakoa idazti au, ta ba-dau zetan arrotu bere egilleak. Zozionak benetan, ta zorionak ez-eze, eskerrik zintzoenak be bai berari. Benetan alegin eragillean jardun dozu!

Eskerrak baita argitaldariari, La Gran Enciclopedia Vasca **jator orri, onek emongo dautzuz bear dituzun zeastasunak, idatzi edo deitu bertara: Prim, 43-3.º, Bilbao-3. Urrutizkiñak 24 33 01-23 66 05.**

IBUR





ITXASOKOAK:

Aspalditik nekian Garmendia eta Berasategi'tar Iñaki jaunak, oraingoz Pasai-Portuko «Practico» danak, zenbateraiñoko buruausteak zebiskin itxas-iztegi jator bat EUSKERAZ eta ERDERAZ argitara nairik.

Ondarrua'n bezela, beste gure itxas-errietan ere, oztoporik aurkitu zun bere eginkizunean, AZTUTA edo GALDUTA ziran itxas-euskal-itzak bildu eziñik.

Oztoporik aundiena, gure itxastar jendeak aspaldi galduak dituztelako beraien arazoetako erabiltzen zituzten euskal-itz jartorrak. Ondotxo ezagutzen bai-degu itxastar jendea eta beaiek erabiltzen duten oiturazko iztegia. Euskal-itz-jatorrak utzi eta erdal-itzak erabili oi bait-dituzte parra-parra.

Gerta izan zaigu, zortzi-amar bat arrantzale zaarren artean jarri, eta lendik genizkigun euskal-itz jatorretatik kanpo, bat berririk ez jasotzea.

Euskal-izkuntz gaiean jakintsu aundia izan gendun Azkue jaunak ere, Euskalerri osoa orpotik bururaiño aztertu zuanagatik, etzigun eman gaiak merezi zuanaren erantzuna. Eta ez dezagun aztu, Azkue jauna lekeitiar semea zala, itxasbastarrean jaio eta bizia.

Beste orrenbeste esan dezakegu, Txomin Agirre zanagatik ere. Ondarrutar semea, itxas-bizitza iñork baiño obeto ezagutzen zuana, bere «Kresala» ospetsua lekuko. Alare, «Kresala» etzaigu ain aberats azaltzen, ez guztxiagorik era, itxas-izkintzari buruz.

Iztegi aldetik begiratzen badiegu, Agirre'k idatzitako «GAROA» eta «KRESALA»'ri, garbi asko ikusiko degu «Garoa» oso aberatsago dala. Etzan izan, ziur asko, Agirre'k euskal-itz-garbiak arkitu eta sartzen alegindu etzalako: *arkitu etzitualako baizik.*

Izan ere, Ondarru, Mutriku, Lekeitio, Bermeo eta beste itxas-errietatik aspaldi galdu ziran euskal-itxas-itz jator asko. Eta ori, Agirre eta Azkue'n denboran gertatzen ba'zan, zer esan oraingo denbora onetan?

Baiña, oztopo aundi oiek guzik bidean aurkitu arren, Garmendia'tar Iñaki jauna, etzan makalduta ez koldartuta gelditu; eta bere ametsa, saiatuaren-saiatuz, aurrera ateratzeko zoriona izan du. Bai, orixe!

Benetan txalogarria, arrigarria ezpalitz, bere lan aundia. Ba-dago liburu bikain onetan *ze ikusi* eta *zer ikasi.* Gu beintzat, zearo txunditurik utzi gaitu, ain liburu mamitsu ta apaiña eskuratu degunean. Eta ezparik ez degu egiten, Iztegi ori eskuratzen duten guztiak ere, berdintsu txunditurik geldituko dirala.

Atalka edo sailka dakarzki itzak, eta oso egoki eratuak, gaiñera. Sailbakoitzean, saillari dagozkion *argazki, marraski, ontzi-irudi* eta *mapa*'etan azaltzen diran gauzei beren izen egokiak jarriaz.

«ONTZIAK ETA BERE EGOKIAK» saillarekin, asten da, iztegia. Eta sail ortan ontziari dagozkion zati guztiak azaltzen ditu. Eta orrelatsu dagi, beste ainbeste ta ainbeste sailletan ere: *Ontzi ta bere egokiak. Erlinka. Ontzi osoaren ikuspegia. Saietz eta brankatik ikusten diran eskemak. Zurezko zatiak. Korapilloak. Lotura. Itxas-bideak eta aizeak. Itxas-bide tresnak. Ontzitza. Bela-ontziak.* Eta beste onelako milaka *ikustai.*

Liburuaren egikera, berriz, ezin eta apañagoa atera du, Bilbo'ko «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA» delakoak, eta ondo dakigu azkeneko bi urte abetan nolako lan buruak azaldu dituan argitaldari ospetsuonek. Baiña, oraingo au, danetatik apartekoena.

Urre-koloreko aingura eder bat dakar azalean. Eta esan bearrik ez daukagu, ondotinkatua geldituko dala liburu au eskuratzea duana. Jakingo du gure EUSKERA JATORREAN nola esan ditezken amaikatxo gure itxas-gauza, kanpotik sartutako itz-barrabasak erabilli gabe.

Badaukagu, beraz, gure itxas-gizon eta arrantzaleok, nun ase, *gure euskal-gogoa.* Gutxi batez ere, itxas-ikasketak egiten ari diran aundi beste ta ainbeste gazteai eskeintzen diegun liburu au, beroiek diralako «EUSKALERRIAREN ETORKIZUNA».

Bukatzeko, ona emen EGILLEAK nortzuri ta nori ESKEINTZEN dion bere liburu ori:

«ESKEINTZA: *Euskaldun itxas-gizon guztieri, gure lurraldeak ematen dituan itxas-zale danei eta bere txolarteetan euskeraren zabalkunde eta iraupenaren alde saiatuaz bizi dan nere ailen biotz-biotzez».*

ARKOTXA'TAR JOSEBA

KILI-KILI'RI LAGUNTZEN

Jorraillaren 17'an, larunbatez, arratsaldeko zazpiretan, Santiago Apostol'eko areto nagusian, Euskal-jai atsegin bat izango da, Kili-kili lagun maitiaren omenez.

An agertuko dira abeslari bakar eta taldeak, dantzari jatorrak, Abesbats ezaguna... ta ea Kili-kili berak be itz egiten dauskun.

Guzti ori gertatzen danean, irratiz eta izparringiz, agertuko yatzuz jai orren zeaztasunak. Egon zain eta etorri.

Kili-kili gureak merezi dau orrenbeste ta.

EUSKO-MIXIÑOAK

Orain arte, «Los Rios'ko mixiñoa» izena emon dautsegu eusko-mixiñoei. Ondo egoan ori, asieran. Lurralde ortan asi bait-ziran lanean, lenengo, Gazteiz eliz-barrutiko eusko-mixiolariak.

Andik ona, 22 urte buruan, gauza asko jazo dira. Batetik, Gazteiz'ko eliz-barrutiak umeak egin ebazala, eta orrela, Bilbo ta Donosti'ko eliz-barruti barriak agertu ziran. Urrengo, «Los Rios» ek bere umeak egin eta beste lurralde barrietara joaten asi giñan eusko-mixiolariak.

Los Rios'en asieratik sei urtera, «El Oro»ko Mixio barria asi genun. Ecuador'en, ura lez, eta ura lez, Tropiko'ko baso baltzetan. Nekazaritzan diarduen gizaki beartsu aieri, bateoaz artu daben, siñismen-orratz ori azi, sendotu loratu ta ekoitzerazoten ari dira an mixiolariak.

Andik bost urtera Venezuela'ra jauzi, ta an beste iru lurralde artu genitun. Tuy ta Guayana'ko lurraldeak. Ecuador antzeko baso baltzetako nekazari artean. Eta irugarrena, Caracas, uri andi inguruko, Coche eritxon, auzo andi ta txiroa. Venezuela'ko lanbidea, Ecuador'ekoaren antzekoa, gitxi gora-bera.

Etziran, oraindik, urte bi pasa, ta Aprika'n bere giñan gu. Aprika'ko Angola'n, lenengo. Angola lurralde onek, sekulako alderdi andiak zituan, eta iru zati edo mixiño artu genitun bertan: Malange, Sa da Bandeira ta Villa d'Arriaga.

Andik Congo'ko Katanga'ra emon genun urrengo pausoa, bertako istillu gorri arein ondoren. Eta bertako geure mixio orren izena: Panda-Mufunga. Eta ortatik, Ruanda'ko Kamonyi'ra, gero.

Aprika'ko giroa, Ameriketakoa baiño obe ta zindogoa dozu. Gizakiak bere sendo ta saiatuagoak. Askoz bere atzeratuagoak bizi yatzuz, baiña, euren aspaldiko nekazari ta artzaingoan. Izkuntz berexiak bere dabez, ta geienak sorginkeritara emondako jentillak dozuz.

Berexiagoa dozu, beraz, ango lanbidea bere: berexiagoa, latzagoa ta luzakorragoa. Eskola ta sendagaien bear gorrian dagoz, batez bere.

Aprika'ra jauzi aundi ori egin arren, ez doguz, orregaitik, Ameriketako lurraldeak bertan bera itxi. Aitzitik bere, lengoak sendotu ta beste barri batzuetara bere sartu gara. Ecuador'en bertan, Manabi'ko mixiñoa ta Ambato'ko abadegeitegi bi artu doguz.

Eta Ecuador'etik at, Chile ta Brasil'en bere asi gara, orain bosten bat urte. Chile'ko Chiloe ori, Venezuela ta Ecuador baiño aurreratuxeago. Ta ango lanbideak, emengoen antzekoak, gitxi gora-bera. Giroa bere obea. Ez orrela, Brasil'eko Sao Paulo'n. Ia, zazpi milloizko uritzar au, era guztietako lantegiz beterik dago. Ta geure mixiolariak, uriaren inguruko 300 millako auzotzar batean ari yatzuz lanean.

Bertan biztanle geienak, Brasil'eko baserrietatik etorritako nekazariak izanak dozuz. Jaunaren gauzetan eta lantegiko gauzetan, azi ta ikasi bagekoak, geienak. Gauz bi auetan saiatzen dira, bada, geure ango amabost mixiolariak.

Berreun abade euskaldun ibilli gara, 22 urte auetan, emen izendatutako lurraldeetan, beste ainbeste mojatxo ta neskamutillekin bat. Abade geiago bear dira, lurralde oietako bakotxan. Eta lurralde geiago dagoz abade euskaldunei begira ta deika.

ESTONBA'TAR MAÑUEL

SIÑISMEN - AZKATASUNA

Katolikoak orain arte itsu egon gara gure anai kristauakin, eta beste aldera be bardin. Egia geure aldetik bakarrik egoala uste izan dogu danok beti. Gaur Batikano Bigarrenari esker, beste modu batera pentsatzen asi gara. Erlejiño-azkatasunak on asko ta aundiak ekarriko leukezala-ta nago. Erlejiño-azkatasuna ez da epeltasuna; ez da oztasuna; bakoitzak gura dauana sinistea be ez. Jaungoikoagaz bete-bearrik ez eukitea gitxiago. Kontzientzia azke eukitea be ez. Guzurra ta egia neurri baten jartea be ezin izan leiteke. Erlejiño-azkatasuna erlejiñoa azke betetzeko gizonak dauan eskubidea da, bere kontzientziak diñotsona egiñaz; beraz, katolikoak, bere siñismena ez daukenak be Jaungoikoarengana eroan daikez. Katolikoak ez diranei euren kontzientziak diñotsena jarraitu dagiela eskatuz.

Erlejiño-azkatasun onek darraien onurak ekarriko leukez gure errira be.

Gure siñismena ez daukenakaz izketaldiak izaten, artu-emonak eukiten ikasi. Ez dabe onela pentsatzen gure katolikorik geienak. Izketaldiok pentsamentuak zorroztutzeko ta sakontzeko izango leitekez. Besteak egi-apur bat euki leikela esan gura dau onek, naizta guk uste izan ez.

Gauzak ulertzen ikasi. Gure itsukeria itxi biotzkemena galdu gabe.

Gure katolikotasuna agertu; oiñarri sendoa emon berari; adimenez argitu ta biotzean berobero eroan.

Biblia obeto aztertu. Erlejiñoa ondo ta sakonkiro ikasi. Zelan maite izan dogu orain arte Jaungoikoaren itza?

Katolikotasuna bizi; ez katolikoak izan, auxe irakatsi dauskuelako; ez nire gurasoak eta aurrekoak izan ziralako bakarrik.

Bakoitza obeto gertuko litzake siñismena zaintzeko, ta geiago maite izango leuke Jainkoaren doai eder au.

Apaiza be obeto gertuko litzake eztabaidak arerioakaz osotzeko. Geiago ikasi bearko leuke. Katolikoak gitxitu egingo litzakez paperean, baiña askoz oba; orduan jakingo genduke zeintzuk diran egizko katolikoak.

Epeltasuna itxiko genduke. Baikano Bigarrenak itxartu egin dauz protestanteak. Erlejiño-azkatasunak be itxartu egingo geunkez; ainbeste katoliko epel.

Erlejiño-azkatasuna. Politikan be ezin pentsatu denak bardin. Eziña. Gizon bakoitzak bere asmoak, bere ideak ditu ta ezin zapaldu daikez indarrez edo beste edozein bidez. Erlejiño-azkatasuna onurakor litzake ba gure erriarentzat be.

GOIRIA

ZAR ETA GAZTE

Gizon zar eta yakintsu batek
aurkitu eban bidean
mutil begiko, sendo, mardul bat
adiñin ederrenean.

Mutil gazte ta ameslari au
itun xamar ikusirik,
zarrak tamalez, itandu eutson:
zelan zoaz ain itunik?

Gaurko munduan zuzenik-eza
norberekeri-legea.
goi eta bean ikusiagaz
naigabez nago betea.

Nire buruak argia nai dau,
nire biotzak bakea,
nire ametsa, alkar-maitatzen
gizon danak ikustea.

Gazte nazanez alaitasuna
maite dot biotz-biotzez,
alan da bere gizadi dana
ikusten dot zoritxarrez.

Zelan ez naz ba itun egongo
gizarte onen erdian,
gose, naigabe ta zoritxarra
nagosi dala lurrean?

Gazte maitea ez al dakizu
bizitza burruka dala,
argi ta illun, guzur ta egi,
onen kaltez beti txarra?

Ez al dakizu bizitz onetan
ez dala zorun osorik,
emen ez dala gure biotza
asetu leiken gauzarik?

Gauzak zuzendu nai ba'dituzu
Egian aldez yokatu,
zuzena dana maite izanaz
txarra onagaz garaitu.

Baikor izanaz itunak yaurti,
ez galdu alaitasuna;
goi-laiño baltzen ostean dago
eguzki-argitasuna.

GARIBEL

MUNDUA ATONDU

Berba batzuekaz mundua atondu albalitzake ta ludian era ipinteko geu arduratuta bagengoz, mundua atondu gura dogun aldikidan bizi izatea jazo yaku. Mundua atondutea atsegin geunke guztiok. Eta alan diñogu ta gizadiak daukazan ainbeste asmakizun (problema) aztunak erabaki geinkezala siñistera elduten gara. Alanbe, aldi berean, gauza ukugaei lotuta, tinkaturik bizi gara, geure ondasun ta gizarte onura goratu ta obetzeko beti asmoz, geuk atondu daikeguzan gauzen ardurea itxirik: gure ondoan, gure eguneroko bizitza zati txikian dagozan izakiak laguntasuna guri eskatzen eta bearbada guk, gor ta itsuz, tranquil ezer emon barik.

Norberen zeregiñ-kizunak zelan dabiltz? Gure sendiko gizaki bakoitxa zelan bizi da? Geure bear-izan, egin-bearrak zeatz, zindo betetzen doguz? Nik esango neuke gure nereikotasun, andikeri, ta lasaitasunakaitik munduko keiak zeru goi garbia ikusten ez dauskue itxiten. Esaterako, zeregiñen eta egunen egia; inguratzen gaitun mundu txikiaren garrantzi ta gogokortasuna. Eta mundu txiki au, benetan txikia, ain zuzen be, atondu bear dogu.

Lengo egun baten, idazlari praile batek bere berbaldian onenlangoxe gaiak, gitxi gora bera, esaten ebazan. Bernaldari egidun zan, artez egoan. Mundua, ludi guztia atondu gura dogu ta gero geure etxea naspillatuta dago, geure mundu txikia eragabeturik ikusten da.

Jakiña! lenengoz norberen etxea bare ta bakean euki bear da, idazlariak iñoanez, «nire etxea bakean egonik»... Zer egin neike orain mundua atonduteko? Nik mundua eratuko dodala asmatuten, ausnartzen ibiltea, bakunkeri bat da. Baiña egikizun eginbearretatik bai eraztuten lagundu geinke. Geure egin-bearrak ondo-ondo beteaz. Ugazaba, buruzagi, lantegiko nagusi ba-naz, langillei euren sari, alobere zuzenak, irabazi guzti-guztiak emoten dautsedaz. Langillea ba-naz, neure egin-bearrak eta lanak dagidaz, alperkerian luzaro egon barik. Danok gure bearizanak ondo bete ta bear, gaur baño obeto egin, ori bai dagola gure eskuetan. Au da geure egin-bear ta eskubidea. Eta astialdietan ez aiztu geide ta urko-lagunei laguntza emon bear yakeela.

Agiriz, ezin dagiguzan asmakizun-problema asko dira; oneitan ez gaitez kezkatu edo arduratu. Ez ete-dabe larregi itz-egiten gizataldeak? Ta sarri-askotan ez dakiezen gauzak, berba-egitearren bakarrik, jakintsuak balira lez. Gitxi dakien eta ezer egin ez leikeen andra-gizon astidunei gizarte ta ludiko asmakizun ikaragarritzaz berba egiten entzutea, barre egitekoa izaten da.

Bakotxak egin bear eta al dauana egitea ori izan bear leuke geure arazoa ta zeregiña. Onelan ez badogu egiten albai-ariñen, bildur ta tirriña emongo dausku gogapenak.

Nik askotan gogaldu ta ausnartzen dot gai au: mundua atondu. Eta auxe da nire aterakizuna. Gizaki bakotxak bere egin-bearrak zindoro beteko baleuz, mundua atonduko litzake. Bakea, zuzenbidea, eraona, ulermena, eta abar, norberen egoera ondore batuak dira-ta.

LETONA

MAITASUN-LEGEA

Gauza guztiak maitasunak darabilz. Yaungoikoagazko artu-emon guztiak, maitasuna dabe oñarritzat eta elburutzat. Maitasuna da bizitzaren iturri eta zorionemalle. Guztiz egokiro azaltzen dausku Baunard agurgarriak egi pozgarri au:

Yaungoikoak maite gaitu, eta maitatzea, itzegitea da ta itz-egiten dautsogunari aditu-eragitea. Or doguz, ziñesteko egiak, Idazti Deuna ta Legea.

Yaungoikoak maite gaitu; eta maitatzea, maitearen antzeko egitea da. Or dogu Yaungoiko Semearen Gizakundea.

Yaungoikoak maite gaitu; eta maitatzea, maite doguna gaizkatzeko (salbetako) al dan guztia egitea da. Ara or Berreroskunde edo Erredenziñoa.

Maitatzea, maite dogunagaz beti egon gura izatea da. Or dogu Yesu-Kristo egiz eta benetan gure aldaretan.

Maitatzea guztau ta bakotxari bere burua emotea da. Ara or Yaunartza deuna. Aparia.

Azkenez, maitatzea, norbera zoriontsu ta maite diran guztiak be zoriontsu betiko egitea da ta, or dogu betiko zoriontasuna zeruan.

* * *

Ortxe sartzen da maitasun guztia ta ziñeste guztia be. Ori dala-ta Yon deunak diñosku: «Guk, Yaungoikoak izan dauskun maitasunean ziñestu egin dogu» (I-IV-16).

Ori gogoan eukita ulertuko dogu, zer dala-ta, gure eginbear guztia bizitza onetan, agindu onetan sartzen dan: Yaungoikoa zure biotz guztiaz, indar guztiaz eta gogo guztiaz maitetuko dozu, eta zeure geide, urko laguna zeure burua legez.

* * *

Bakotxa bere maitasunak darabil. Maitasunak maitatzen dogunaren antzeko egiten gaitu. Ondo diño Agustin deunak: «Lurre maite dozu? Lurra zara, Yaungoikoa maite dozu?» Zer gura dozu esan daitzudan: Yaungoiko zara. Maitasun barik ez da ezer munduan. Yaungoikoak maitasunez egin gaitu. Sendia maitasunetik sortzen da. Seme-alabaen azierea maitasunaren lana da. Zer maitatzen dozun esan egidazu eta nor zarean esango dautzut.

Yaungoikoa maitasuna da, ta kristiñauak goi-maitasunez bizi bear dau.

GABIREL

ZORTZIKOTEEN TXAPELKETEA

DANOK

Iruña'n eta Gazteiz'en izan ziran bereizketetan, sei zortzikote geratu ziran, gero, Arrasate'n egin bear zan azken-saioan abestеko.

Au, Epail onen 7'gnean jokatu da, ta gogor jokatu be, ez da ba izan erreza zein zein baiño obea zan aukeratzea. Ona, epaimaikoen erabagia:

1.—Ta txapeldun Aiñorga'ko **Ertizka.**
2.—Zarautz'ko **Itxaspe.**
3.—Errenderi'ko **Karnaba.**
4.—Olite'ko **Erri-berri.**
5.—Erregata'ko **Erreka.**
6.—Saldu'n dan Eusko-Etxe'ko **Zortzilagunak.**

Epaimaikoak erabagi bitartean, **Oskarbi** abestaldeak ekin eutson, ederto gaiñera egin be, utsune ori beteten.


Batzordekoak, laguntzaille guztieri eskerrak emonaz, datorren urterako era barri ta suspergarriak izango ei-dira diñoe, aurten ikasiak lagun. Ez, ez dira **Danok** taldekoak geldirik geratuko. Zorionak!

UBITZA

ITZ-EUNDUAK

(VI)

Etxebarria'tar Juan Angel



ARGIBIDEA

ZEARRETARA.—A: Mundu.—B: Aurra izan dauana.—D: Loikeria (a. a.).—E: Esku izan. Aditz-atzizkia.—G: Ezo bakoa. Ardao.—I: Abereen buru-atal. Uste ozos.—J: Gelditu (a. a.) Pelotari ospetsua.—K: Ukapena. Kosonontateak.—L: Ari izan.—M: Arpegi-atala.—N: Atsekabe.

GOITIK BERA.—1: Geiegi.—2: Ugel.—3: Andre-izena.—4: Eusko abizena (a. a.).—5: Sasi. Konsonante. Larregi (a. a.).—6: Sein. Igon (G).—7: Su-miia (a. a.) Bokal. Jentillen jainkoa.—8: Eusko abizena (a. a.)—9: Lokarriak.—10: Non (G).—11: Guzti.

V'ren egerpenak:


Zearretara = Epe.—Zor.—Gizon.—Ba. Ez. Izaba. Gazi.—Kabi. Ariz.—Eier. Artoa.—La. Ta.—Igazi.—Ira.—Loi.

Goitik bera = Ike.—Zai.—Babel.—Gabirai.—Ezi. A. Gil.—Poz. Aro.—Ero. A. Zai.—Negarti.—Zarta.—Zio.—Iza.

ASMAKETEA

(IV)

Garatea'tar M. Luisa



ZER DOZU NEGARREZ?

III'ren agerpena: **Urkatu buruzagiak.**

EUSKAL-ERRITIK

MUNDURA TA ETXERA BEGIRA

Amerikar Calley tenienteak bost bider artu ei-eban My Lai'ko agura, emakume ta aurrak erailteko agindua. Nor, errudun? Gorrotoa; gizarteak aldendu nai ez duan gorrotoa; mundu guztiko zapaltzailleen gorrotoa.

* * *

Il onen 5'gnean Suez'eko pake laburra amaitu da. Zer jazoko ete-da? Moscu'n edo Washington'en itandu bearko. Gudea barriro sortzen ba'da... David garaille.

* * *

Casaroli kardenala Moscu'n izan da. Anizan dituan artu-emonekin pozik joan ei-da Erroma'ra. Alan izan bedi!

* * *

Aita Santua Polonia'ra, bai ala ez? Jaroszewicz'eren (oporrak amaitzeko) eskeintza bat: «Eleiza'rekin artu-emon obeak izatea». Aita Santuaren etortzeak ori egiztuko leuke, baiña bildur, erria, katoliko dala geiena, kalera urtengo litzakela ongietorria egiten, indartsu ta larregian.

* * *

Bruselas'en judatar asko batzartu dira. Zertarako? Errusia'n diran 3 milloi euren anaien askatasunaren alde. Siñistu eziñekoa da «paraiso» tik urten nai izatea.

* * *

Iribar atezaiñari itaun ganorabakoak (eta asmo txarrekoak) egin dautsez izparringi baterako. **«Politika aldetik pentzakera argia dozu?»** «Baietz uste dot, guztiz argiak». **«Zelakoak dira?»** «Ori neuk dakit eta naiko da, ez dot beste iñork jakiterik nai». Jakiña, Jose Angel!

* * *

«La Escapada del Sol» deritxoen pelikula egiten asi dira. Juan M. Insunza da gaiaren asmatzaillea. Mikel Zugatza ta Aitziber antzezlariak. Diru aldetik ez ei-dabiltza ain indartsu.

* * *

Eta pelikulak aitatu doguzan ezkero. Zer jazo da «Ama Lur» egaz? Euskal-Erri osoan diru mordo galantak batu ziran eta orain ez dau iñork argitasunik emoten.

* * *

Mary Pickford, 77 urte. Bere senarrak eskatuta, orain 50 urtetik gora egin ebazan filmak zabaltzeko baimena emon dau. Aurten Europa'n ikusiko ei-dira. Ia egia dan gure aitonak diñoena: «txakur-aundi bategaitik gaurko aldean gauza obeak emoten jeuskuezan».

* * *

Frantzi'ko «Tote»n —zaldijokoko kiniela azterketea berau— buruz-bera ei-dabiltza. Eun lagun inguru ei-dagoz begiz jota. Azkenengo 18 illabetetan milloien jabe egin ei-dira, «amaladunak» jokoa amaituta gero sartzen ekielako. Illabete bearko ei-da nornor dan jakiteko.

* * *

Nun egingo ete-da Bizkai'ko «areopuerto» barria? Perdigo jaunaren eretxiz «Berriaga»n, Artebakarra ondoan, toki egokia izango litzake. Baiña, zer diñoe Bilbaina'koak? Laukariz'en ainbat lur erosi dabe euren «jauregitxoak» egiteko ta egazkiñen burrundadea ez da gustokoa izango. Ezetz egin or?

* * *

Panama urbidearen ondoan beste bat ei-doa. Gora-bera barik, itxasoaren ein berean batetik bestera. Jakitunak baiña bildur: zertxobait gorago dagon Pacifico' tik arrain mota gaiztoak etorriko ei-litzakez gurera ta emengoak ondatu. Gaiztoak eta zikotzak gara gero. Geurea egitean orkonpon urrengoak. Gure illobak ez dabe ez arrain, ez petroleo, ez aize garbirik aurkituko. Nun dira gure aiton gixajoak, aritzak eta pagoak ereiten ebezenak...urrengoentzat!

* * *

Baserritarrak asarre dabiz. Esnea merkeegi erosten ei-dautsee ta ez dabe saldu nai. Karrantza'n asi ta Bizkai, Araba, Santander ta toki askotara zabaldu da ondoeza. Emen bere esan daikegu: «Batzuen izardiakin besteen diru egitea».

* * *

Pascual jaunak idazlan txorta ederra agertu dau Bilbo'ko Gazeta del Norte'n. Euskerearentzat mesedegarria izango dala uste dogu, gaurko egoera orren erakustea. Zorionak Jauna!

* * *

Madrid'eko Hacienda'n 8.000 agertu dira milloitik gora urtean irabazten dabenak. «Irriparretxo bat egizu arren».

* * *

AESA, Sestao'ko itxas-ontzi lantegian beste ontzi bat egin dabe Polonia'rako; Izena «Kolpania Seziorko». Ikusten danez diruarentzat ez dago mugarik ez ideolojiarik be.

* * *

Polonia'ko lendakari barriak diñoanez, «disciplina sociala» jartzera ei-doaz an: Oporhuelgarik iñork ez egitea aurrerantzean... bestela tankeak gaiñera.

* * *

Inglaterra'n eskutitz-zabalatzailleen oporra amaitu da. Urrengo illabete osorako lan gogorra, 60 milloi ale ei-dagoz erbestean ara sartzeko zain. Ez dabe ezer irabazi, egun-sari asko galdu bai; erriak milloiak galdu ditu, eta okerrena korreoetarako, alkarte ta lantegi aundiak bitartean euren zabalketea eratu dabe ta orretan jarraituko ei-dabe. Galtzeak eta asarreak danetik.

* * *

Isrraeldarrak jakintza mailla guztietan dira ospetsuak. Polio'aren aurkako eztitxua Albert Sabin'ek lortu eban. Onek diñoanez Nasser beretako batek erail ei-eban. Orrenbeste be...

* * *

Tupamaroak, 200 egunetik gora giltzapean euki ondoren injeniero gixajo bat askatu dabe, baiña gaixorik. Gizon au on-ona ei-da ta politikoegaz zer ikusirik ez duana. Tamala bene-benetan.

* * *

«Mercado Comun» deritxoen Europa Alkartua indartzen doa, eta Madrid'en estu ortuko etekiñak sartzeko an izango diran oztopoegaitik. Frantzi'n aurka jarri dira, ta ipar-aldeko laurak alkartean sartu ezkero gauzak zaillago jarriko ei-dira oraindik.

* * *

Mafia, Sicilia'n sortu ta mundu guztira zabaldu dan alkarteak gure ondotik ei-darabiltz drogarik geienak or zear zabaltzeko. Emen ez da orretzaz larregirik idatzi, baiña asko geitu ei-da inguruetan «drogak» artzeko oiturea.

* * *

Frazier-Clay, zoratu gara benetan: 800 dolar jarleku bategaitik azpi-salketan; 15 milloi burrukaldiaren tarteko atseden minutuko irakargiegaitik; Milloi terdi zinema-jarleku 20 eta 30 dolarren bitartean; laterri geienetatik dirutza negargartria TV. bitartez ikustearren... Jaunak gurako al dau minutu erditxo baten danori amaitzea, ta zerbait ikasi danok ondatze zikin onetatik! (bada-ez-badan, seis ordu lenago idatzi gendun au ta oera joan).

BEGI-BI


INSALUS

Urik garbiena ta osasungarriena

BILBO INGURUKO MENDI BATETIK ADI

Azkenengo udazken arratsalde eguzkitsu ta argi baten, ego aize pizkat egiten eban arratsaldean, Bilbo gure erriburu, bizkaitarrak, euskotarrak egin eta edertutako uriburua ingurutuen daben mendi baten gaiñean nengoan, Bilbo'ri adi, ta oldozkor bada, abertzalea izanik erabagi ezindako arazo asko ta sakonak nebazan neure buruan. Azkenez mendigoizale lez oldozmen batzuk egiten geratu nintzan eguzkia sarkalderantz ostenduten ikusi arte.

Danok dakigun lez, sakon-une baten, goitik begituta, Artxanda, Arraiz, Pagasarri ta Arnotegi, eta pizkat urrunago Ganekogorta eta Sasiburu edo Arroletza mendiak ingurututa aurkitzen da gure Uriburua. Orregaitik bearbada, sakon ortan sarritan illunpean aurkitzen diralako, uriburu lantsu ta zaratatsu ortatik, albo mendietara aize garbiagoa iruntsitearren-edo, bilbotar asko igoten dira, ta orreitan trebetuta zaletuaz, geiago ta urrunagoko goi-mendietara joateko.



Bilbotarrak ziran Emaldi ta Abendaño mendigoizale euskeltzaleak (Goyan Begoz). Bilbotarra da Sopeña, euskeltzalea ezpada be, bai Euskalerria'n eta bai bertatik at, aiserrian be ezagun dan mendizale goralgarriena; mendizaletasunak zerbait baiño geiago zor dautsona. Baita Bilbo'n egin zana mendigoizale legez, naita zornotzarra izan, Espinosa eta Etxebarria'tar Ander mendigoizale kementsua, Alpes'eko Mendi-Zuria, Europa'ko goitiena, Ipar-Aprika'ko Atlas, baita Aprika'ko Kenia'n aurkitzen dan Kilimanjaro, lurralde artako mendirik goitiena, mendi ikeragarri orreik bakarrik, iñoren laguntza barik igon ebazana ta zetan esan bez, euskaltzale zintzoa bera. Eta nork esango leuke! orain urte gitxirarte, bere berebillakin artu eban tope-tope baten il arte, España'ko Mendizale Bazpitatza,ko (F. E. M.) lendakari izan zan Delgado Ubeda'tar Julen, madrildar mendizale jakintsua, euskotarron adiskide jatorra, berak pozez esaten eban lez, Deusto'ko Ikastetxe Nagusian, Etxegintzari (Arquitecto) ikasten ebillala, leenengo Bizkai'ko mendiak igoten eta gero Euskalerri'ko mendiak zear (euskotar askok baiño obeto ezagutzen ebazan eurok) egin ei zan mendigoizale purrukatua. Eta berton, beraz, sortu bere euzko mendigoizaleenganako adizkidetasuna, edozein tokitan lotsabarik erakusten eban maitasuna.

Egun baten, ondo gogotatzen naz, 1.954'gko. Dagonillaren leenengo egunetan Europa'ko Mokoeta (picos de Europa) aitzartean, Naranjoren iparraldean, Urruello esaten dautsoen lekuan, aterpe barri baten azkundea ospatuteko laterri arteko goitimendiko batzarketa (Campamento Inetrnacional de Alta Montaña) egin zan, eta, ori zala bide, ainbat prantzes, iru inglandar, suizo bi ta Iberia'tik katalan, madrildar, valenziar, asturiar, santandertar eta amar edo amabi euskotar bertaratu giñan. Aterpea, asturiar apaiz mendizale gazte batek onetsi eban eta, urren, ango sagardo ta ardau pizkat danok edanda, Delgado jaunak adirazi eban talde bakoitzak bere eskualdeko abesti bat edo beste, abestu bear ebala, ta orretara egin zan. Inglandarrak abestu eben euren bat, prantzesak be bai, katalandarran «Sardana» bat, madrildarrak «Chotis» bat, asturiar eta santandertarrak euren bat eta abar; azkenez euskotarrok abestu genduzan «Goiko Mendian» eta «Boga-Boga», ta gure eztarriak garbi eukaguzalako-edo, poliki urten euskun ta ain poztasun andia artu eban Delgado jaunak, gizonak euki leiken kemenik andienaz esan eban Gora Euskalerria»! bere benetako izenaz; bertan giñan geienok, Gora! sendo batekin erantzuteko.

Beste mendigoizale kementsu asko be sortu dira Bilbo ta bere inguruetan, batez bere guda aurretik, izen-gabe jarraitu baeben be euren bizi ederrak Aberrialde emon arte. Euren omenez erdi abotsian abestuten jatsi nintzan:

Benetan da polita.
gure Aberria,
biotzez maite daigun
Berak maite gaizan.
Guztirik gaixoena da-ta
Gure Aberria.

Altuna'tar Josu

Zaldibar

Kili-Kili'ren Billobatxoak poz-pozik

Benetan, garrantzitsua da orain aldi luzia dala aukeratu zan batzordeak, uri onetan, eusko-ikastola bat lortuteko artu eban erabagia.

Jakitun gara zenbat eta zenbat neke aldi garraztasun nabaitu daben euren gogo orretan aurrera jarraizeko, baiña tinkotasun bulartsuak eta eroapenak nun gura ta beti, menperatu izan ditu aurrekaldean sortzen diran eragozpen guztiak.

Danon agirian dago, batzorde onek adimen argitsuakin aldi luzean egunik egun, izardia ugari egotzirik, lortu dabe salneurri gabeko igali eder au.

Zaldibar onetan, aldra andia da KILI-KILI'ren Billobatxo diranena eta txikitxo oneik, adi-adi egozan onek ateak noiz zabaltzen ete zituan, orain euren zoriontasunak ez dauko neurririk.

Sendikoren baten kidetasunean goi eta arratsalde bertara zuzentzen dira nean, biotzetan daroen poztasun andia euren arpegietatik aterateko, begirakada txiki bat naiko da.

Ikastola au sortu zan egunetik ona aldi laburra dagon arren, eguzki dit ditzariak gartsu argitu dau urretxin dortzo maitagarri onein gogoa.

Adiskide batek adierazo daustanez dan-danok dira goralpen andiaren jabe Tamalez, eurokandik ez dot izan o eritxi bat artzeko zoririk baña bai euren guztion artean ixilpean euki ezin dodana Berasaluze'tar Eneka eta Iturriaga'tar Aitziber'ek, euskera garbian egin euste abestalditxua. Arreta osoan jarrita igan neban une ori eta ondorian, bear zan lez baita gogotsu, txalotu be egin nituan.

Oneik udabarriko txoritxo bi ditu guztiz alaiak.

Datorren illeko AGUR aldizkari onetan, jarraituko dot beste enparau Kili Kili'tarren gora-berak adierazoten.

Azkenez, utsune lar andiegia izango litzake, nere lerro txiro oneitan aintzat artu ez ikastola onetzaz, batzordeak egin dauskun langintza ain onurakorra eta orregaitik jakinerazo bear dautzue uri guztia biotzez eskartzen gagozela baña egia esateko, eskerrik gallenen zor dautsagu, bertako andereño Zarrionandia'tar Miren'eri, bere ardurapean daukozen erantzun bear ain aztunak, ain zintzo eta burutsu daroazelako.

GAIXORIK

Bilbao'ko Yartza osatetxean aurkitzen da bertan osatebakuntza egin ondoren uri onetan ain maite dogun Etxeandia'tar Miren Karmele andereiñoa.

Jakitun gara garaitza osoakin atera dala une tamalgarri orretatik eta ganeko egun oneitan etxeratzeko asmoetan dala eta bide onetatik gure zorionik beroena agertzea egoki jaku.

JAIOTZA

Gure adiskide maitagarri Garitanandia'tar Keparen emazte dan Eguzkila'tar Alizak, semetxo ikusgarri bat izan dau.

Uste izatekoa dan lez, euren pozak ez dauka neurririk eta benetan gure atsegiña be bardintsua da. Zorionak.

MAORTUA'TAR MARTI

Leguiano

Negua oindiño

Otsaillaren azkenengo igandea, ta aurreko egunak udabarrikoak ba'irudien, gaurko au «euria goitik, euria betik, euriak albo guztitatik», olan iñoan zaar-gazte batek, bere lagunekin inguruetako mendietan ibillaldi bat egitera etorritakoak. Bai ba, berriz ere ogeta bost urte ebezlakoan edo, or jun ziran «eizalekuak» aztertzera, ta lenagoko pagoordez, lerr-piñu, berezi, ota, sasi ta bedazakar mela-melatuak aurkitu ebezan. Nilsionean gero, sut-aurrean, galtzak erazteilotsaz, lurruna erioela. Gero, bazkari beragarria, babarrun-indaba indartuak, eta ozatadian. Nikasio ez zan gurekin, bere emazte Gazteiz'ko osatetxe baten dagola, a ikusten joan zan. Laster izango al da etxean!

Soiñetik ala urdailletik oba?

Ez ziran danak euri-pean, baton-bata obeto asmatu eta inguruko ostatuak zelakoziran begira ibilli zan, onek urdailletik bizziran, ala ta ere, neurrian, Sarri baiña, asberotu egiten da, eta bergarar batek, batarrun obeak ipinten ekialaka asi zan: «galdobestela Gorla'n», guk itzari elduta, udabarridan arte, an izango giñala ea egia ala guzundan erabakitzen.

Eiztari-arraintzaleak

Ez da izan igande au giro orrek ezagutzaegunik egokiena. Ikusten ziran bai, egarieta aata sail ederrak, egaz, goi-goian; beralokatzatan bostpaisei eiztari beste orrenbeuso eta aatekin. Arraintzarako goizegi oraindik, ta osiña erdi utsik daukagu, arraintzaaroa eltzean ikusi bear.

ZIOLA

ERRIETAKO BERRIAK

Zeanuri

Erren nator, barriro be, zertxu bat esan gurean. Agate deunaren aurre-egunean, aurten bere, oitura zarrari jarraituaz, ainbat abeeslari ibilli ziran erri onetan: Altzuaga-auzuneko gazte batzuk euren San Juango ermitea atontzeko batzen eben. Orain jai-egun guztietan baso-eleiza orretan Meza santua dauke, ta pozik dagoz. Gazte jatorrak dagoz, gero, auzune orretan! Euren abestiak entzutekoak ziran! Jarraitu dagiela ba Gorbeiaren magalpe orretan.

Beste gazte batzuk be ba ebilzen. Emengo lan-ikastolakoak ziran. Txera ona egin geuntsoen. Una euren abesti batzuk:

Zeanuriko lan-ikastolatik
ona gatoz abeslari;
Barri-zaleak gu izan arren
jarraituaz oiturari.

* * *

Laguntasuna eskatzen dogu
Bai entzule guztioi
jakintasunaz bear gaitezen
erri onen serbitzari.

* * *

Eleizondo ta inguruetako auzunetakoak ospatu zendun Balendin deunaren eguna.

Meza santua ta itzaldia D. *Martin Olazar abadeak egin ebazan. Berbaldian ainbat jakin bearreko gauza azaldu zituan, batez bere sendotasuna bearrezkoa dogula beti baiña iñoz baiño orago gaurko egunetan esan eban, egiari arpegi emoteko.*

GORBEATARRA

Arratia

Adimenez labur-motza naizelarik, kondai edo istori zarretan sakontzeko ez dot almenik, egun bateko negar-zotiñak eta indarra baiña, gabeko lokolozkak aztuarazoten dauskun ezkero, ta aztutekoak ez diralako, joan zan udaldian izan ez genduzan eta izan genduzan jai batzuei astinaldia egitera natorkizue.

Aingeru-erria irabaziko ba'dogu, Kristo'ren irakatsietan bete bearreko bat parkamena dogu. Lurtarron arazoetan barriz dana parkatu ta guztiari amen egitean geure burua ta Erriaren izatea ondatzen doguz, eta bide ontatik bere, nire ustetan, uts dagigu. Beraz, bakoittak kolkoaren agindua bete dagiala, arratiarrontzat aztueziñak, Euskal-erriarentzat jakingarri mingots diran gertaera oneik irakurtzean.

BEIN BATEAN

Arantzazu'ko gazteak erriko jaiak zirala-ta, Arteaga'ra jo eben, eta, bai-ta porrot egin bere. Ormetan jarri bear ziran orriak zorionez, euskeraz egiñak egozan, eta endore edo alkate emeak, zoritxarrez, debekatu.

Arteaga'ko gaztediak, beste bein, erriko jai nagusirako zerbait egin bear zalata, eusko-jaitxo bat egiteko erabagia izan eben, erabagia baiña ebagia izan zan lenago aipatu, aitatu dodan agintariaren aginduz.

Ziur-ziur nago Arteaga'ko eusko seme zintzoak asarrez izango dirala onenbestegarrenez erriaren izena ikustean (erderaz Castillo-Elejabeitia).

Atal ontan On Pedro apaiza ta berari egindako omenaldia dodaz buruan, alde batetik; eta bestetik, argi ta garbi ikusia izan zan apaiz jaun zar apalarenganako ezin-ikusia.

Eldu zan, eguna. Emen ziran bertsolariak, dantzariak, eta, erria bere bai.

An zegoan erriko guztiena izan bear leukan enparantza-zelaia, jaia egiteko ordua burutu ta eldu zanean baiña, ezer egingo ba'zan, eleizaren itzal eta kerizpean moltzotu bear. Au zoritxarra! Gorroto zaarrak aztuteko baiño barriak biztuteko obe dana.

* * *

Zeanuri'ko Undurraga'n bere, Sanpedroetan, ba ziran bertsolari ta euskalabestizko jaiak egiteko. Baiña, agintariaren agindua (erriko semearena); «agintza eskuan izango dodan arte ez dogu izango taju orretako jairik», izan zan, eta, bete bere bai. Zer izango ete dau gizon arek bere barru-barrenean, agintze-giltza eslnz aldatua izan danean!

* * *

Artaun'en bere (Dima'n) ba ziran iñoiz ezlako eusko kutsudun jaia egitekotan. Itxasotik urrutian bizi arren baiña, ingurumari jarri eutsoen sare maltzurrari, legeari sudurra gazi-gazi erakutsi, ta, atzerakada egin bearra izan eben.

* * *

Oba auzotegian (au bere Dima'n) ostera, asmo ta erabagi guztiak burutuak eta elduak izan ziran.

Emen bere ba ziran sare, beatzarri ta lakiro edo tranpak. Oneik guztiok azpiratzeko paparrean bizardun gizona bear zan, agertu zan, eta jaiak poz-pozik asi ta bare-bare amaitu ziran.

Emen doguz joan zan urtearen buruan, andi-andika pillatu ta laburki azalduak, Arratia'n izan genduzan korotz baltzak.

LANDAJUELA'TAR A.

Usansolo

Gaztedia Artega

Ez arritu. Ez da edozelakoa arein artegatasuna. Baiña, dagozela, bai. Benetan dagoz urduri, orain arte iñoiz ez ba'dira bere.

Aspaldian, erdi lotan egon gara Usansolo ta bere auzunetako gizasemeak, Udaletxea urrin dagolako, edo alkartasunik ez egoalako... nork daki zergaitik. Argi ta garbi esanda, gauza gitxi ikusten izan da. gure artean. Ez dot onegaz esan gura, ezer ez dala egin. Gauza ederrak egiñak izan dira, baiña batentzat buruko-min guztiak. Gure Eleizburu dan Don Bittor'entzat, edo geien bere beste iru edo laurentzat.

Zintzo lagundu ete-dautsagu zeregin onetan? Eleiza barria or dago, baiña zenbatek esan geinke biotzez, gureak izan dirala an izan diran buruko-miñak? Bat, bi... amar sendik? Ogeik? Geienok lo samurrean izan gara. Lauerleko batzuk emon, eta kito.

Ta orain? Aixe barri bat gaztedi onek dakarrena! Usansolo'ko goraberak, arazoak eta kezkak, GUREAK DIRA, esanda, lanean asi dira, edozein laneri oratuta.

Lamiñarrieta'n gelditzen izan diran ijituak egindako barrabaskeriak ikusiaz, an joan dira Udaletxera zuzentasun billa. Ta beti dago erantzuna gure Udaletxean, onelako eskariakaz doazanentzat. Lamiñarrieta'n ez dago gaur ijiturik, ta ez dabe lasaitasun txikerra artu, inguru areitan lurrak daukiezanak.

Au eginda gero, jolastoki ta batzar leku bat bear dala-ta, or dabiltz ateak jo ta apalari ereiten, buruera ori betetzeko. Bien bitartean, amaitu barik dagon apaiz etxean, asi dira diardun

An izan da joan dan martitzenean, odol artu-emonetako batzar bat. Notin mordo bat eldu zan, batzar orretara. Beste bat gertatzen dagoz onen ondoren, odol-emoille alkartasun bat Usansolo'n sortuteko. Txalogarria ez ete, da, olako gaztedia ikusirik?

Ta batek edo bik egiña ba'litzake, betikoa esan geinke: «Urleiek diardun ekin dautsalako, bestela...!» Baiña ez, ez da ori egia gaur.

Agertu orain arte egin ez zareanok, ta igande guztietan ikusiko dozuez, jardun bero baten, gazte mordo ederra, euren ekinbearretan.

Sarritan esan dot, baiña barriro bere esan bearra daukat: EKIN ETA JARRAI neskamutillak, gure erriaren aberaztasuna, zuen eskuetan dago-ta. OLANTXE!

ATXUTEGI'TAR JULENE

Ugao

(Miravalles)

Gurea lenengo

Ba- doa Ugao be landolaz ta bizilekuetarako etxez moltsotuten; azi ta azi, biztanlez ugarituaz; beste lurraldeetatik geienak; gitxienak, jatorriz albo erri ta gure baserrietatik jatsiak.

Aldenduaz doiaz solo-landu ta basetxeak, baita erri erdiko urte askodun etxetxu gomutagarriak; au da, zaar guztiak barriai sarraiera emoteko. Urrena, beste erri batzuetan jazo dana: igiriko dira jai-toki sarratuak eta akaitedi apaiñak, gaztedia zorabiotuta itsu eukiko dabenak, baiña ez dira geituko idzategiak eta jakintzarako toki egokiak, gitxiten ez ba'dira. Gainduaz joango dira, doiaz, atzerritik sartutako oitura gogorrak, batez bere gazteen artean, errezagoak eta «atsegiñakoak» diralako jakintzarako bide sakonak baiño, naita banaka batzuk, eusko-abendarentzat eredu lez izan.

Oldozkerea be aldatuaz doa, baita nortasuna be, ta ori dala bide ba-dira batzuk, goietako basaetxeatan bizitzea, erri-jakintza aztertzea edo gure euskera maitea mingaiñean erabiltea, mintzatzea, atzeratua dala uste dabenak. «Aurrerakuntzea» barriz, euskoaren ziñeskerea ta eskubideak aintzakotzat artu nai ez dabezanak ipiñiarazo nai dabezan oitura —ez larregian zuzenak— eta egikizunak, izan bear dau.

Ba-dira orraitiño eusko gazteak «aurrerapen» orreri aurrez-aurre, gure asaba zaarren oitura ta jakintza zindoa nekatu barik ikasten eta zurtuten diarduenak. Eta orretarako sortu eben Ugao'ko ETORRI eusko dantza-taldea, ta eskerrak berorren lendakari Etxebarria'tar Koldobika ta gazte talde bateri, asi ziran erri-jakintza berbiztu ta eutsiten zaletasunik aundienaz. Eta urren, eguneroko lanetik eta ikastaroetatik azke aurkitzen diran aldi guztietan, bai jakintza gaietan eta dantzaketan sakonduten.

Lenengo, Bizkai'ko dantza kementsuak ikasten asi ziran; geroago, orain dakiezan dantza-sorta guztia ikasi arte. Dantza orreik ikasten asi ziranean, «Andra-Mari» talde ospetsuko Barandiaran'dar Patxi mutillen irakasle, ta Edurne neskatilleentzat ebezela, eten barik ekin eutseen: zelango irakasleak, alango dantzariak sortu ziran». Urte artan bertan, zorioneko aurkezpena egiñ eben Arrankudiaga'ko jaietan.

Eusko-dantza talde onek amabost mutil eta amairu neskatil dantzari ditu aldi ontan, eta iru txistulari. Es dauko bazkiderik, dantzatutean lortzen daben txindi ta taldekoak ordaintzen dabenaz bakarrik toloztuten dira. Eragozpenik eta arazorik asko izan dabe talde kementsu ortakoak, sortu zanetik onako zazpi urteotan, baiña, garaipenik-garaipen diardue beti, kukilduteko bildur barik.

Dantzakaz bakarrik, eurok asko izanik, ez dabe geratu gura ta, aldi ontan, ikastola bat eralduteko asmoa dabe, erri ta inguetako gazteak ikasi dagien gure euskera maitagarria, eta lortuko dabelakoan gagoz euzkotar zintzo oneik, adoretsu aurkitzen diralako Erri maitasunean.

Aurrera Ugao'ko gazteak! erri guztia benetan euskaldun egin arte.

KOLDO

Ibaizabal aldetik

BASAURI

Iñork ittxaroten ez genduan gaixo zital baten menpean jausi ondoren, Otsailleko amabigarrenean, Artiñano eta Ormaetxea'tar Yon, ogei ta amar urteko mutil abertzale zintzoa il zan. Samingagarria izan da benetan, mutil euskaltzale au ezagutu daben guztientzat, mutil alai maitekor eta nortasunduna geure artetik Jaunak eroatea. Bear ba'da, iñoiz baiño bearrago gendualako gure Erria'rentzat. Era berean, samiñez aurkintzen dira, errian jaietarako gertu ibilli ziran gazte-talde guztiak, bera, Jon be «Txikerrak» taldekoa zala, beste orreik alaitu ta euskotuten aleginduten zan.

Gure eskuartean izan dogu, ta jakiña, bai irakurri be ondo «Edurre» bazkunak Otsaillean argitaldutako aldizkaria. Gai sakonak darabiltz, sakonegiak ondo ulertzeko bear ba'da, edo txarto irakurtzeko arriskondunak, ikasi berezikoa ez ba'da beintzat irakurlea. Baiña tira, ez legoke txarto, guztia gazteleraz eta euskotasun aztarranik bage idatzita ez ba'lego. Salamanca edo Valladolid'en be bardinbardin orretara idatzi leikee, baiña emen, Euskalerrian, euskelzaletzat agertzen dan batek, ez, ala «Edurre» izen eder polit ori jarriaz naiko dozuela uste ete-dozue?

GALDACANO

AGUR, en aurreko 10'gn. zenbakian idazten genduan esanaz: errian atseden-baratz bat, parke bat, egiten asteko zirala, ta ortarako zelango txinditza Udalak, lenengotan, ipiñi daben. Egoki izango litzakelakoan garata, ara emen barriz:

Atseden-baratza bearrekoa dogu, ez dogulako erri guztian atseden-toki egoki bat, baiña ez aurreko Udal batek argiegi bereganatu eban lurralde ortan, gure ustez. Ibaizabal ibai-ertz bustitsuan eta erriak daukon bitxabal gurutzero arriskutsuaren bitartean, naita burdun-sarez ingurututa ipiñi, beti izango dalako arrisku andikoa, ta ez larregian osansungarria. Oraindik, Galdakao ontan badago lurralde ederrik, erriaren erdi-erdian, Zamakoa - Muguru - Urreta - Tximelarre - Plazakoetxe bitartean, esate baterako. Zergaitik aldakuntza bat egin ez, orreitako lurralde batekin. Gero damu izatea baiño, oba izango litzake orain, osasungarriago dan toki bat aurkitzea.

Igarotako Urtarril eta Otsaillean ainbat euskal izen ipiñi ziran erriko txadonean, jaio barriak ugatzatzean: M.—Josune, M.—Iratxe, M.—Begoña, Asier, Gorka, Igor... ta Aitor, au jartzeko baiña Zornotza'n ugatzatu bear izan eben Joseba-Andoni ta Miren Karmele bere gurasoak, emen eragozpen aundiegiak epaikaritzan izan ebezelako.

Euskaldun gurasoen lenengo bearkuna, euskel izenak jartea, bete dabe onein gurasoaks, baiña, bigarrena, seme-alabatxu orreik euskeldun garbi ta benetakoak azitea da, lortuko ete-dabe? Dan-danok, bai?

BASA-JUAN

Bilbao

Nerbion, Bilbo'ko ibai urduritsua

Bilbao'ri bere aberastasuna ta entzutea Nerbion ibaietik geien bat datorkioz. Gaurkoz ibertar luradarraren kai ospetsuenetariko baten jabe dalarik ausaz.

Garrantzi au urteotan etxe ta kanpo geituz ta edatuz doa. Orrela atzerritarrak eurak be benetako gora ta aipamen bereziak, bere kai, burdiñol ta itxasgintzei ezpaigabe damotsez.

Egunotan Persia'runtzko bidea iru gabarrak artu ei-dabe, ta laister beste amabik jarraituko dautsee.

Egin-egiñean Gipuzko'an, Pasai'n landuak ta amaitutakoak eurak, baiñan Santurze'n itxasoratuak izan dira. «Werdenfels» izentaturiko alemandar zama-ontzi zabaleko barnean kokatuta joan dira. Lan onetarako Pasai baiño Santurze egokiago dalako nunbait.

Salbe'ko Zubia

Ordua da onetzat bere zertxobait esatea. Itxura galanta berea benetan. Langilleak apurka-apurka, baiña beti lanari loturik daragoioe. Ta erdi jasota dager; beste zubi erdia tinko sustraituta ta oraindiño jaso gabe egon arren. Ezari-ezarian baiña beti aurrera doa, Bilbo'ko etorkizunaren miragarrizko ezaugarri au.

Gazolineroak

Gaure ibai txiki-zaratatsu au alde batetik bestaldera igaroteko, zubi geiagoren bearrizenean bilbotarrak aurkitzen garanez antza, gazolinedun ur-ontziak ibilli dabiz eten gabe millaka ta millaka notin egun barruan ibai baster batetik bestalderatzen. Aurtengo Epail asieran eurenetik batek, Deusto'ko Kanal-ubidean egolekua daukanak ain zuzen, opor porrot-alditxo bat izan dau prezio-ordaingarrien goraberak dirala-ta. Irureun langilletik gora lanera joan barik geratu ei-dira Epaillaren lenengoko egunetan, ta ezbear auzi-mauzi au amaitzeko, lantegiak eurak ordaindu bear, langilleen ordez atan be, izango dabela diñoe lengo ta oraingo prezioen aldea; gazolinerodunak ezetz ta ezetz diarduan ezkeroz, lengo balioan ez dagola ezta urrik emon be, ibaia igaroterik. Aulan ibai-igarotze sari barriak guraiña buruko miñ Nerbion inguruko langilleentzat ezezik baita lantegidunentzako ere ziurrik asko.

Bermeotar Arrain-ontziak

Baita ere «Agurretik» agur beroak damotseguz Deusto'ko ur-bidean urtero lez negu gogor illuna igaro bide arrain-ontzi ugariak bertan euki dituen Bermeotar arrain-ontzidunei. Datorren urterarte agur, ta arrantza ugaria lortu dagizuela aurtengo aroan!

Nerbion'go lenen arrain-txapelketa

Nerbion urari goiti, 79 arrantzale goiz ta eguerdi aizetsu ta euritsuari arpegia gizonki emonaz, Miraballes ta Arrigorriaga'ren erreka biurgune bitartean otsaillaren azkeneko igandean batu ei-ziran. Garaille ta txapeldun Aretxaga'tar Peli, 890 gramoko zaparda-barbo bategaz autatu eben. Goien saria berari emon eutsen ta bigarrena Roman Antolin bilbotarrari. Sariketa Miraballes'en, udaletxeko arkupean izan zan.

Adoretsu diardue gure ur-gezako arrantzaleak. Ea datorren urtean be II'garren txapelketea ospatzen dogun ta alaikiro atan be, aurtengoa ba, bertaratu ziran guztioen aburuz, oso polita ta pozgarria izan dan ezkeroz.

Sanchez Orueta'tar Elixabete

Epailla'ko 4'gn, bere bizitz osoan Kristauizatearen eredu bikaiñ-bikaiña nunai edatzen ebala, Jaunak bereganatzeko duiñ aurkitu eban Sanchez Orueta'tar Elixabete, Zubiri'tar Bingen'en alarguna, ta bere zerutar altxorrak betiko eskeñi eutsozan.

Bere sendi ta senide guztiei «Agur»'etik biotzbiotzeko samiñ-agurrak damotsedaz, batez bere adizkide miñak diran Sabin ta Xabier'eri, ta beste ainbeste gure «Agur» illerokoan lagunkide ta euskal-idazle trebea dogun Iñaki'ri.

Jaunaren besoetara joan jaku. Zuen zerutar senideakaz batu da. Teresalina lekaimearen, bere alaba odol-emaillearen alboan dakusgu. Kristautasunean ta euskal-zaletasunean jarraibide jaku.

Eredu au jarraiturik zeruko aberrira jo daigun guk ere.

Ta beretzat bein ta berriro otoi bero-beroak Goiko Jaunari eskeñi daioguzan. Goian Bego.

Arregi'tar Josu

ERDI-BIDERIK EZ... ERRI-BIDEA, BAI

Erdi-bidera deika entzuten doguzan abots eta oiuak ugaritu dira azken egun onetan, euskeraren batasuna dala ta ez dalaren auzian. Erdi bidea zer eta zelakoa da baiña? Errez-erreza; noizik bein H bat sartzea, bokal biren tartean edo...

Abots orreik ez dira danak bardiñak baiña; gure ustez batzuk borondaterik onenagaz gure arteko eztabaidak amaitzeko deadarka dabiltzaz; beste batzuk ordea, euren «ikurtxoa» bigunki, laban-laban, an edo emen H banaka batzuk sartu ta gero... ateak euren asmoari bete-betean zabaltzen dabiltzaz. Au jazo dala aldizkariren baten esango neuke. «Neutral» agertu nai, diru laguntza alde batetik eta bestetik (geiago «batetik» bestetik baiño) artu ta bere garaian, sakela bizitzeko aiña bete ondoren, lenengoari atzea emon... atzea ta atxea! *Linboan bizi diraneri, jakiña!*

«Erdi-bidea», itz eta elburu polita! Baiña egisko erdi-bide ori ia egiña zegoan, idazle ta nere antzeko erdi-idazle geienok erdi bide orretara etorriak gengozan, lengo zailtasun ta «neologismo» geiegikeri guztiak alde batera itzita.


Arana'k ta bere jarraitzalleak, orain berroitamar urte euren idazkera sartzen alegiñak egin zituen. Euskereari bultzakada galanta emon eutsenik iñork ez du ukatzen etsai amurratuenak izan ezik (H zaleen bateren bat ere), baiña orduko idazleuk be, erri bidea galdu eben, izkuntza arloan oztopo larregi sartu zituzten. Azkue, Kirikiño, Txomin Agirre ta beste idazle askorena zan erri-bidea. Borondate onik aundienagaz ekin arren, euskera garbi ikusi naian bear ba'da, larregikeri asko sartu eutsen gure izkuntza oneri ta politika kutsu apur bat emon bere bai; nai ta nai ez, kaltegarria! Erri-bidetik kanpora urten eben izkuntza arloan.

Zein da baiña batasunerako «erri-bidea»? Nere uste apalean, lege nasai batzuen bitartez, euskalkiak beregain dituzten ezbardintasunak moztuaz, bardintasunak aukeratuaz, euskaldun guztiak ulertzeko euskerara jotea. Ez da ori guztion elburua?-Ez!

Orain barriro lengora jo dabe izkuntz iraultzalleak. Nundik sortu dira oneiñ asmo ta «ikurrak»? Guk, Arantzazu'ko batzarra baiño askoz lenago «Vasconia» irakurri gendun. Idazti (?) aren egilleak argi ta garbi erakutsi euskun bere barrua.

Politika ta gizarte aldetik dan-dana apurtu bear zan. Erriaren izena, ikurriñak, gizarte oiñarriak, erri xearen euskal kutsuzko nortasuna eta abar; orren ordez azpikeria sartu!

Burruka aldetik, beste erri askotako teknika barriak sartzen zituan baiña, bada-ez-bada, beste batzuk aurretik bialdu; norbera, intelektual maillan «geroari» begira!... 36'ko gizoneri kritika zorrotz eta guzurrez betea, maltzurkeriz eta gorrotoz gaiñezkatua egin... baiña egille orren iritziak gitxi gora-bera... gizonak, gizon; eta «bocheak», «boche», sasi-euskaldun.



Izkuntza aldetik... iraultza! Euskerea iraultza bidez apurtu, ondamendira eroan arren, zer? Euskerea mundu guztiko langilleak alkartzeko oztopo bat ba'da, zer? Lelengo langille izateko lanean asi bearko!

Orra or H'ren sortzea; talde batzuk ikurtzat artu eben, beste batzuk ikurra aren eskuetan ez iztearren eurak ere sartu; orain danok dabe. Sekula olako pitxi baliotsurik!

Bitartean euskera kili-kolo, barriro politika kutsuaz nastaurik, izkuntza gaixorik baiña jostaillutzat arturik, euren eritxiak zabaltzeko bidetzat aukeraturik H ori «ikurra» danik ez dausku iñork ukatuko, ta naiz Euskaltzaindi osoa, zutunik jarririk, ori orrela dala adierazo, guk ez siñestuko.

Orregaitik nik ez dot «erdi-biderik» onartzen, orregaitik, guk, lengo ta oraingo ikurrak alde batera itzita, euskeraren alde jarraituko dogu.

Esames eta azpijokoari ez dautsegu jaramonik egingo. Batzuk, siñestu ez arren, badabiltzez azpijokoan eta ez gure aurka bakarrik; beste H bako aldizkari ta lanen aurka ere bai; erriz-erri ta «gorago» bere bai bear ba'da, guzurragaz salatu gaitue, gure aldizkaria ondatu naian, baiña alperrik! guk ez dogu ezertariko menpetasunik, ez taldekerirk ezagutzen. Jainkoak nai ba'du laister amabostero aterako dogu, aurrez-aurreko burrukan, idazle askori begietako lausoa kendu naian.

Gure elburua? Euskera ta euskal-erriaren kutsua ez galtzea... beste guztiari or konpon!

Guk erri-bideari jarraituko, gogorkeri bidez sartu nai diran arau guztiak alde batera itzita. Euskaltzaindia dala lemadun? gutzat ango batzuk «lumadun».

Argi dago gure eginkizuna: Erri-bideari bai, erdi-bideari, ez.

Amaitzeko oar batzuk: Esaten danez H'gaz idazten dabenak 40 urtetik beerakoak dira; diru emolleak 40 urtetik gorakoak eta H'ren aurkakoak. Ori erdi egia da: 40 urtetik beerako idazle askok idazten dabe H'barik eta gorako askok H'gaz, batez ere, «jakintsu» askok. Diruaren arazoa baltteke egia izatea. Gauzak orrela ba'dira orra-or nere deia: Orain euskeraz era bietara idazten da; ez dago «Euskeraz dalako» danari lagundu bearrik; ez dago burrukan asi bearrik. H'zaleak diñoen beste ba'dira, eutsiko dautse eurenari; guk, H'bakuok eta gu bezelako irakurleak eutsi daiogun gureari. «Erdi-bideko» H'zale-ixilleko aldizkariak lortu daitela dirua beste leku baten (H-zaleen artean).



H'rik nai ez ba'dozu, gaiak eta asmoak u ba'dozuz atsegin aurkitzen, ez emon txakur txikirik eta geureari lagundu! H'zaleak ez dira lotan egongo!

Erri-bideari bai... erdi-bideari, EZ!

ARENAZA'TAR JOSU

ESNE ARAZOA

Ara atadian barriz «Esne Arazoa», ta gogorra dator: lenengoz ba, ta osoan alkartuta, lugiñak oporra egin dabe. Salneurrien gora-bera orren barri, egunerokoetan esan danetik dakigu zerbait, iñork ez daki baiña, guk beintzat ez dogu ikusi, esne-jasotzeak zenbat diru artzen daben, au da «coste» dalako ori. Gure ustez, ortik asi bear leuke eztabaida orren erabakia, eta zenbat irabazi batak eta besteak.

1965'gnean, «Baserriaren Lagunak» idazlan bat agertu eben orretzaz, itxuraz baiña, iñork ez eutsan jaramonik egin. Urrengo, beste-ainbeste, arazo orretzaz, alkarte onen «Lugintza» orrian, ikusi bere 5'gn. zenbakia 1967'ko Bagillaren 15'ekoa. Tamala benetan, aldi luze onetan ez dala ezer egin, ta ara ondorenak.

Alde bietatik argitasun zeatzak bear dira emon, zenbat ordaindu bear izaten daben esne orregaitik; ori jasotzean, ori erostean. Ta oiñarri orretatik, gero be, aldeak bardindu daikez aldizka, edo geroak eskatzen daben neurrian.

Lugiñak zergaitik oporretara joanak diran erriari azaldu gurarik, ona emen argibide batzuk, baita nundik datorran salneurri aundiagoa eskatzea, gaur.

Era guztietako etekin-jasotzeen artean, esnearena biurriena, begirune zeatzena ta zorrotzenetakoa da, ta ortik, garestiagoa, gizonez ta dirutzan. Begira zergaitik:

1.—*Lurraren dirutza*, capitala, naiko aundi bear diran bazka, bedar, ale... batuko ba'dira.

2.—*Beietako dirutza.*

3.—*Lan-erabilketarako dirutza*, lenengo biok ibilli dabiltzan eta esnea jaso.

4.—*Lurraren zerga*, ta lugintza-laguntzako orea edo *segurua;* au, beste ori baiño birritan aundiagoa da.

5.—*Danetariko eralketak* deritsagun eguneroko ordainketa aspergarriak.

6.—*Lan-saria*, langille lez, *baita-jabetza* saria be, txikia izan arren.

Laurlekotan agertu daike guzti ori, lenengo biak benetan aundiak dira, ikusi emen Bizkai guztirakoak noraiño doazan:

1.—34.500 ektarea lur, 6 laurlekotan metro laukiak, Bi milla milloe osotzen dabe. Ori merke jarrita, Hacienda'k ba, orrena baiño geiago eskatzen dau bere il-ondoko zergak jasotzean.

2.—50 milla abere, 35 milla laurlekotan bakoitzak, 1.750 milloe egiten dabe. Au bere merketxo jarrita.

Ala ta bere, 3.750 milloe dira, irakurri ondo; iru milla zazpireun eta berrogetamar milloe bei ta lurretan bakarrik. Ezarri orrei goiko beste areik ta or goaz gora-gora zati ederrean.

Beste aldetik ostera, Lantegi-eraaldatze eta salketa-zabalketarako «centralak» bear daben dirutzea dago. Guk dakigunez, lenengo beste aren % 5 besterik ez da, au da: 187 milloe ta erdi. Ta ara zergaitik dabiltzan baserritarrak itaunka:

Zergaitik ete, aldatze-salketa sailla, beste esne jasotzea baiño, diru-laguntzatik obeto lagundua izatea?

Zergaitik ete da, «danon oberako» esne-jasotzailleak «galbideko landolen» jabe izan bear au? Ez ete gara ba, lugiñok, «danon» orren arteko zati bat?

Zergaitik ete, lurretik lortuta Laterriaren azpikoeri jaten emoten eguneroalegintzen garananonen lan-saria ez aztertzea, ta «coste» aren gaiñetik bidezko litzaken irabazia aukeratzea?

Erantzun bako galdera onein ondorena, eta beste batzuena, baserriak ustutzea, eta geratu diranen opor egitea, ez dauke lanera nora joan-eta, ezta alkar-izketara deituak izan be. Aspertu da itxaroten, ta iñork uste ez eban neurrian, gogor jokatzen asi da, beartuta.

Bai. Abere-jabeak be euren alegiñan egin bearko dabez esnea merke jasoten. Orretarako, bedar-leku «zilo» ak jaso, zelai onak landu, ongarri-zimaurrak zabaldu, ura eta abere garnua be emon, eta au ez alperrik galdu.

Ordain-costeak ez aztertzea batetik, bestetik «garraztasun» neurketak «centralen» esku bakarrik izatea, ta ortik asmatzen daben merketzeak mindu dauz baserritarrak. Areik jaun ta jabe lez jokatzen dakie, ta ez dabe ezelako argitasunik emoten esnea ordaintzean. Orregaitik ba, lenago, beti, oitura izan zana barriz erabilli bearra dago: esne-jasotzailleak be, bere aldetik, esnearen garraztasun neurriak aztertzea orretarako dagozan etxeetan, central'ak diñoana egia dan ala ez jakiteko. Gero, gaur darabiltzazan neur-gaiak bastertu, ez dira egokiak-eta.

Ta guzti onen gaiñean: abere jakiak goratzeko errezkadan, 7; 7,20; 7,40; 7,60 laurleko Kga., esneari 6,50'en eusten yakola bitartean. Eta mairako ura? Ur-utsa, ontzietan sartuta (esnea be bai) datorrelako 8 laurlekotan saldu, bitartean esnea, jaki indartsua bera, bean lotuta. «Danon oberako» ete da ba, esnea baiño garestiago igali-ur eta ozkirri-edariak saldu bearra?

Guzti orren ondoren, eta baserriko bizitzari aurrera bidea itxi yakolako, gaztediak uko egin dautsa, ta au errez ulertu daikezu. Adiñeko lugiña bakarrik geratu da, bastartuta, lotuta; bere senditarrak ez-eze, gure gizarte-alkartzeak be bakar-bakarrik laga dau, ta ara nundik baserriaren ondapena ta azkena... ta ezinbestean, opor au.

Azkenez, arazo au zuzentzeko ardura aundia bear da erakutsi, baserritarrekin alkar-izketarik izango ba'da, entzun bestela zer diñoen ao batez: «Or konpon naste guztia, ta laga daigun esne jasotzea... ta baserria bera».

Geroaren odei-baltz oneik ikustean, bearrezkoa dala garbi dago, erakundeen aldakuntzea lortzea, neurri bidezkoak artu, bai lugintza beragan, baita auzo-bizitzagan bere. Orrela ta ez bestera, gizonak lugintzara lotuko dira, ta mendi-auzoetan egoki bizi.

OLAIZOLA - EGILEOR

ISRAELDARRAK, BAI OTE ARRAZOIRIK?

Guda madarikatu onen berriak alde guzitan anitz idatzita, astindu dira. Bataren eta besteen arrazoiak ugari. Guda sortzen dan leku guzietan, bakoitzak bere eskubideak ontzat artu oi dituzte. Guk, neutralok, ordea, obekiago ikusten degu, nun edo zeintzuk izan lezaketen arrazoiak.

Israeldarrak, beren eskubideak, orain urte asko galdu zituzten, arrezkeroz beren izateak ludi guzian zabalduaz. Guda guzien azkenak, olakoak izan oi dira. Euskaldunen artean ere gertatuak dira. Anai arteko gudak dira txarren, elkar-gorroto biziz ornituak daudelako. Ez da okerragorik, anai arteko ezta-baidak sortutzea baiño. Ez da okerragorik ere, anai oiek, naiz ta guziak abertzaleak izan, bakoitzak batekoz-beste pentsatzen ba'dute. Ori gertatu zala esan geinke gure artean. Bai karlisten gudan eta geroago izan gendun ortan ere.

Israeldarrak, orratiokan, lortu zuten beren Aberria. Ortako ingelesak erreztasuna emanik. Eskerrak ere norteamerikanoari. Auek, beren indar gogorrakin lagunduaz, lortu zuten askatasuna.

Arabeak ordea, ez zuten aintzakotzat artzen, beste oien erabakirik, ta, orrela sortu zan bi arerio oien burruka bildurgarria. Noiz izango da azkena? Ez dakizkigun berriak dira oeik. Bien arrazoiak gogor ta aserre jotzen dutelako. Ortik dabiltz bai, lau aundi pakearen billa. Pake ori ordea, ez izan baten eta besteen gogozkoa.

Israeldarrak beren aberria zaitu nai dute. Ori, ordea, arabeak ez nai. Ortan sorturik «Sei egun» aiek, arabien lurrak arturik. Israeldarrak ez zuten lasaitasunik beren aberria txikia ta itxia inguruetan izanik. Egun batez, baten arrazoiak eta besteenak, jo zuten elkar, ta gertatu, gertatu zan guda. Arrezkeroz, guda ori ez da bukatu. Naiz ta gaur egunetan konponketak egin naian ibili. Israeldarrak gero ta ugariago joaten dira beren aberrira. Ori arabetar oientzat ez ordea ona izan. Aarabeak oso atzeratuak izan dira beti. Israeldarrak, ordea, argiak eta dirudunak. Diru orrek askotan emanik nai dutena, edo aspalditik daukaten egarri bizia asetzeko bidea. Israeldarrak, lurrak nai dituzte eta lur oiek arabe artean izan.

Israeldarrak, guziok dakigunez, Europa guzian daude. Europa ontan, ordea, ez dira ongi ikusiak. Gero, azkenengo guda izan zan ezkeroztik, millaka igeska joanaz. Nora? Beren lurretara. Beren lur oiek, ordea, arabien eskutan izan, ta, orra geroztiko burrukak.

Nerekiko, errukarriak dira israeldarrak. Ikusirik ikusi dituen iltzeak Hitler piztiaren denporakoak. Milloikak erail ta erre labetan... ta, ez aldira errukagarri?

Beste biderik ez daukate arabetarrak. Israeldarrakin elkar ondo konpondu, ta beren ondoren, artu-emanak obeto zaindu. Utzi gorrotoak.

Guda guziko azpi-janak ordea, ikaragarriak izan oi dira! Azpi-jan oiek «Bi Jauntxo aundi oien» interesak izan... Interes oiek petrolioak dira. Rusitarrak aitzeki biribilla artu dute, gaur egunotan izanik Mediterraneo'an amerikanoakin berdintzeko eran. Or dabiltz ur oietan batera ta bestera gudako ontziak. Baita ere besteko ontziak. Zer gertatuko litzake, bi alde oietako ontziak, elkar joko baluteke...? Gauz onik ez.

Nundik arkituko dute betiko pakea? Pake ori, nork emango die? Elkar konponketa bi arerio oiek nola lortuko dute?

Guda guziak irauten dute, bi alderdikoak, armak dauzkatelako. Arma oiek, zeintzuk ematen dizkiote? Ruso ta amerikanoak emandako armakin jarraitzen dute gudan. Bi «aundi» oiek dute beraz errurik aundiena, ta, ez beste biak, gudan ari diranak. Bi aundi oiek, utziko ba'lioteke armamenturik eman gabe... guda berealan bukatuko litzake, armarik gabe ezin leikee gudan jarrai. egingo ditu alegiñak Jarring jaunak, beste jauntxo oiek jaramonik egiten ezpadiote. ONU'ko itzak ez balio noski askoren gogoan. Jo batera, ta jo bestera, astindu au, edo dalako ura. Itz ederrak ta goxoak esan alde guzitan.

Komeni ote zaiote rusoeri ta amerikanoeri pakerik? Esan geinke, etzaiotela komeni, bestela, aspaldi ikusiko gendun pakea israeldar eta arabetarren artean. Bi abek elkar batu bear lukete, ta ez beste oien esanari jaramonik egin. Batu ditezela biak maian eta bakoitzak bere zergaitiak agertu ditezela, gero, nundik eta nora jo, ta arkitu pakea.

Israeldarrak naiko ezbear izan dituzte, ta ez dira iñolaz ere jausiko, ta gutxiago burua makurtu. Arabearrak beti diote, alegia, israeldarrak irten ditezela artu zuten arabien lurretatik, ta gero elkar konponduko dirala... Israeldarrak, ordea, beren arrazoiak dauzkate. Auek, lenen nai dutena da, ixeri maian, ta lenen gauzak antolatu ta arregluak egin. Gero ikusiko dutela zer nola pakea egin ta abar.

Israeldarrak arrazoiren paltik ez daukate, beren betiko askatasuna ta ez besteak eraginda jartzen diotena, auen nai bizia izanik. Istaeldarrak nai dutena, beren ixkiñak berekin izatea, gero beren ontziak itxasoan lasai ebiltzea aske izan deien. Golfo de Akaba ta Siria'ko Golan ta beste puntu askotako ateak berekin izatea. Ixkiñ oiek kenduko balioteke arabearrak, israeldarrak berriro zearo itxiak izango lirake, erreztasunik izan gabe, nola mendian berdin ibai ta itxasoan ebiltzeko.

Ez da ain zailla gauzak bear diran bezela konpontzea. Egoismoak utzi bear lituzke arabearrak. Auek, beren laguntzak rusoakin lortzen dutela guziok dakigun albisteak dira. Berdin israeldarrak amerikanoakin lortzen dituzten bezela.

Ala ere, nere ustez, egunen batean elduko zaiote PAKEA. Pake orren egarri bi alderdietakoak izanik. Ori nai genduke neutral geranok.

E. OZKIN

AGUR

II URTEA
12 ZENBAKIA

ILLEROKOA
1971 - JORRAILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA



UMEAK ERRIKO

Erri bat gara eta au jakiteak berarizko poza emoten dausku. Gaurko Erria geu gara.

Baiña geroa begiratzen ba'dogu, biarko erria gaurko umeak doguzala esan bear. Atzo ume giñan, gaur elduak gara, eta gaur umeak diranak biar elduak izango dira. Gu Aitagana joaterakoan, eurak oiñordeko izango doguz.

Mundu onetara agertukeran, agiri dana utsean konturatu ezkero, umea ez da gauza aundirik. Bere adimena «idaztol garbialakoa» da, ikasteko almena, besterik ez. Bere gorputza txikia, indargea, danerako iñoren ardurapean egon bearrekoa.

Baiña ume ori eskubide guztien jabe da, mundu onetara egin bear sakon bat dakar. Zori gaiztokoa, benetan, eragozpenak aurrean ipinten dautsazana: obe litzake errota-arri bateri lotuta itxasondarrera jaurtiko ba'lebe.

Ume orrek osotu egin bear dau: adimenez, naimenez, biotzez, gorputzez. Eta orretareko bear dauan laguntasuna iñork ezin leikio ukatu. Gizarteak lagundu egin bear dautso. Ume ketorik ez da jaioten, geuk ketotuten ei doguz.

* * *

Bere osotze-bide onetan lenengo oinkadak familian, sendian, emoten ditu umeak. Zelako ardurea gurasoena! Eta zelako arintasunaz artzen dan sarri ardura ori! Oso gitxi gertatzen dira gurasoak egin bear orretarako! Ikurton, sakramentu, baten bidez Jaunak deundu eban sendia eta gurasoen zeregiña santua ta Jaungoikoagandikoa da.

Antxe artzen ditu umeak lenengo janari egokiak, bere gorputza osotuez joateko. Antxe izkuntzea ikasten dau eta jakintzaren lenengo oiñarriak ipinten ditu. Antxe bere naimena sendotzen dau, zer ona eta txarra dan ikasiaz. Antxe, maitasungiroa bide dala, bere biotzaren jokerak zuzentzen ditu.

* * *

GERO IKASTOLARA

Ikastolea sendiaren luzapen bat baiño besterik ez da. Orregaitik ikastoleko arduradun nagusiak gurasoak dira; eurak irakaslea aukeratu bear dabe, eurak zer eta zelan irasten dauan jakin bear dabe, eurak diru aldetik ezelako utsik izan ez daiten arduratu bear dira.

Umeak ikastolan sendikoaren antzeko giroa aurkitu bear dau. Orregaitik an erabilten dan izkuntzea etxekoalakoa izan bear da, errikoalakoa. Ez beste izkuntza baragarririk, ez ezelako erderarik irakaspide lez. Ondo litzake, orraitiño, erderaren batzuk, txikitarik, ikasiez joatea.

Ikastolan jakintzaren jabe egin bear da. Lenengo ta bein euskal-jakintza, gero beste jakintzak, zenbat eta geiago obeto.

Ikastolan erri-zaletasuna artu bear dau, alkartasunerako bideetan lenengo oinkadak emonez.

* * *

GERO ELEIZARA

Sendian, gurasoen maitasunagaz batera, erlijiño beroa be artu dau, Jaungoikoa maitatzen, bere erara, ikasi dau.

Baiña ikastolara sartu danean, errira be sartu da, erritarren eleizara be bai. Eta ara sartzeko be gurasoakaz batera doa ondoen. Amak, ixil-ixillean, aditzen ez dauzan gauzak azalduko dautsoz.

Eleizako anai-arreba zarragoak, arduraz, lagunduko dautsoe: beretzat jolasak ipiñiko dabez, pozaldiak gertatuko dautsoez, arriskuetatik zaindu edo arriskurako sendatu egingo dabe.

* * *

Begiratu dagiguzan gure umeak. Eurai laguntzeko arduratu gaitezan guztiok. Eurak dira biarko Erria. Eta, gaur be, umeak erriko dira.

AGUR



Ernani'ko neskatillak, gero mutikoak be egingo eben, euren ikastoleari laguntzeko jokatzen. Aski da bai, maitasunean ezitea: garbia ta zintzoa ortik etorkizuna. Aur onen omenez, ez dagigun itz-zakarrik erabilli emen, euren aurrean, eta okerkeri batzuk ixildu. Zorion Ernani, jakin ba-dakizu zein bidetik jarrai!

IRAGUNDEA



Gogoratuko zara neregan niñoan onegaz: «Oskola gogorra izan nunbait», *orrikak be erabilli ete-ebezalakoan nago. Gure Gotzon zanak be entzun ebazan beste onelakoak:* «Gaurko umeok ez dozan lengoak lakoak», *neu be ez naiz aurten igazkoa bera; azi ta loditu egin naiz, eskerrak, berak Gotzon'ek nere amatzaz iñoan legez, zueri:* «Artu dau amaika eskupeko... txanotxuak, oiñetakoak, oialak eta abar. Ardinarru bat be ekar dautsoe azpirako, ta usaindun autsak erre ez nadin», *ta ondoren berak iñoana diñotsuet neuk be gaur:* «Guztiokaitik, euskaldun gustioi, ESKERRIK ASKO».

Ta, au poza, aurrerantzean ez naiz bakarrik izango, beste anai bat agertu jat, amabostekoa. Ni, ba-dakizue, ogetamarrekoa naiz; nire biki orrek illen erdian jardungo dautsue, entzun arren berari be, ama baten aurrak gara-ta: EUZKERA AMA MAITEARENAK.

Ta amaitzeko, Gotzon maitia aipatu dogun ezkero, ara bera goitik begira guri, irribarre samur orregaz; Eskerrik-asko zuri be, Gotzon, laguntasun aundia izan dot zugandik, umezurtz geratu nintzan onek. Donokiko pagadietan irakurriko ete-nozu? Jauna'ren edertasun orren aurrean ezer be ez ba'naiz be, nere alegiñak zureen jarraitzale gura dabe izan, otoitz ba gure alde!

AGURTXO'K

EGUN OSPETSUA

Mungiar urte-egunetan, egun berezia da aurten ainbat mungiarrentzat orrilla'ren bata. Gauz bi alkartu jakus egun onetan; San Jose beargiñaren eguna ta euskaldun umien lenengo jaunartzea. Egun ospetsua izango al da ba, emendik aurrera gure umetxo maitagarri ta euren gurasoentzat Maietz loratsuaren asikerea.

Alkar-izketa bat egin gura izan dot aldra onetako umetxoekin euren gurasoen omenez. Gure txikiak pozik aundienakin artu dabe jardun alditxo au, AGUR biotz-biotzez maite dabe-ta. Zu, be AGUR, zabal-zabala izan zaite gugaz. Gu erritarrak garan lez, zu be erritarra izatea nai genduke beti, geuri bizitzako arazo guztietan lagundu dagizkuzun.

* * *

Neska mutiltxoak, zer dauka aurten zuentzat Orrilla'ren batak?

«*Egun pozgarria da gure lenengo jaunartzeko eguna dalako ta San Jose beargiñaren eguna dalako*». Txiki-txikitatik Jesus'en maitasuna ta bear arloa alkartzen jakin bear dau lagunak. Gure Gaizkatzailleak beartsu baten txirotasuna, nekea ta bizikerea, beti, izan zituan. Gauza bi onek alkartzen ikastea, osasungarria izango da geuretzat eta jaioterriarentzat.

Zuek zelan nai izan dozue gertau egun aundi ta pozgarri orretarako?

«*Guk euskeraz gertau nai izan dogu*». Euskaldunak zaree gurasoz eta maitasunez. Gauza zuzena zan ba, lenengo argia ta maitasuna artu dituzuen berbetan, argiaren argia ta maitasunen maitasuna artzea. Jesus'ek emon dagitzuela zeuen berbeta eztitsua, beti beti, maitatzeko indarra.

Zein da zuentzat izkuntza pozgarriena, bigunena, gozoena?

«*Euskera geure aita ta amagandik ikasi genduana*». Egiz, aita ta ama dira bai zuentzat lagunik onenak. Gurasoen ontasunagaz batera maitasun artean artu dozue euren biotz eta ezpanetatik berbetarik pozgarriena, bigunena, gozoena. Orain maitasunen maitasuna artukeran, maitasun bi alkartu dituzue zeuen barruan, Jesus maitetsua ta zeuen euskaldun biotz onberatsua. Gaurko maitasun au zuen maitasun izan dedilla.

Euskerea zergaitik maite dozue?

«*Euskaldun errian jaio garalako. Euskal-erria maite dogulako*». Erantzun bi ben-benetakoak dira. Semetasunak eskatzen dau norbere gurasoen bizia ontzat artzea. Odol bardiña, bizi bardiña da. Ta onek eskatzen dau sorlea maitatzea. Ori ez dagiana, endekatu biurria besterik ez da gizon zindoen eritxiz.

Bigarren, erria maite dozue. Zorionak! Jesus'ek be il arteraiño maite izan eban bere erria. Gure berbeta euskal-erriaren pitxi eder bat da, ta erria maite dabenak, emengo edergailluak be maite ditu. Onen artean onenetarikoa geure euskerea da.

Jesus'ek jaunartzea zelan nai ete dau egitea?

«*Zintzotasunagaz ta maitasunez norbere berbetan, nai Prantzeraz nai Ingeleseraz nai erderaz nai euskeraz izan*».

Ondo baiño obeto esan dozue. Ta zuek zeuena aukeratu dozue. Ondoen ulertzen dozuena, geien asmetan dozuena, maiteena jatzuena.

Jesus pozik ete dago euskeldun umetxoekaz?

«*Bai. Guk euskeraz dakigu, berbeta garbi bat. Errezau be egiten dogu ta Jesus'ek euskaldun umeok maite-maite gaitu*».

Gauza ederrak daukazuez zeuen buru ta biotzetan. Berbeta garbi baten jaube izateak poztu egiten zaitue. Zuekin, olako asmo ederrak ikusirik, zuen gurasoak be asko poztuko dira ta baita erriko zuen beste lagun guztiak be.

Josu zergaitik maite dogu?

«*Bizitzea emon dauskulako. Kurutzan gure alde bizia emon ebalako. Geure utsak parkatzen dauskuzelako*».

Erantzuerak emoten aberatsak zarie. Jesus izan bere, aberatsa da. Alderdi guztietatik maitasuna dario gure alde uriola legez. Ta aren ontasuna gogoratu ezkero, guztia da argia, on egitea, bizi emotea ta parkatzea izan bere.

Orrilla'ren batean zer egin dau gure alde Josu'k?

«*Bere gorputza emon dausku janari*».

Au bai dala arrigarria, beste iñork egiten ez dabena gizartean. Lurreko ondasun guztiak gizonentzat emon ondoren, bera geratu jaku lurrean geure janaritzat. Era onetan ezertxu be ez dau itzi gizonari emon barik, lur guztia gizonentzat ta azkenean Bera bere maitasun guztiagaz geuretzat.—PAULIN

EUSKERA

IKASTOLETAN EUSKERA EZARTEKO ZABALGUNDEA

Iru bat urte izango dira, izen batzea egin genduala, Ministerioari euskera irakastea ikastoletan, eskatuaz.

50.000 *izenpe areik eskus-esku eroan geuntsozan Eziketa ta Jakintzaren Ministroari. Izengada arek zarrada aundia egin ebala, jakitun gara, ta bera izan zala, ofizialki ontzat artzera bultzatu ebazana.*

Gaur ez goaz ba, orduan lez, baimena eskatzera, bai daukagu-ta.

Eziketako Lege Orokorrak, bere lenengo zatian auxe esaten dau; asmoetariko bat, «errialdetako berezitasunak ontzat artzea», eta 14 ta 17'garren zatiak, «gurasoen izkuntza landutea» bearrekotzat artzen dau, batez be umeek eskolara asi aurrean.

Baiña esatetik izatera dagon aldea berdintzeko argi ibili bearra dogu. Gaur, Ministerioa, 1983'garren urterarteko Irakaskintza eraldu guran dabil. Eta guk, bearreko dogu, irakaskintza orri buruz, geure naia azaltzea.

Geure nai au noraiñokoa dan erakusteko alegiña egin bearrean gara.

Orretarako, gure Elkarteko Bazkintza Artezkariak, giro au zelakoa dan jakin gurarik, eretxi billa urtetea erabagi dau.

Zuen eta beste askoren laguntza izango dogulakoan, Bizkaya'n zenbat ume dabiltzan ikastolara jakin nai dogu, 4'tik 14 urtera bitartekoak. Bide batez, ume onein gurasoak esango dauskue, euskeraz ikastea nai daben dabiltzan ikastoletan.

Ontarako, orritxo batzuk bialtzen dautsuguz gurasoek bete dagiezan. Ta gero, geuri bialdu. Lagunentzako ta abar, orri geiago bear izan ezkero, eskatu.

Esan bearrik ez dozu, arazo au garrantzitsua dogula euskeraren etorkizunarentzat. Une au, berezia izan daitekela uste daigun. Jokatu gaitezan zurki, gero damu izan ez daigun.

Zure laguntza ta zure erantzunaren begira lotzen gara.

EUSKERAZALEAK

Ona emen irakurle, EUSKERAZALEAK eskatzen dauskuna. Alegin gaitezen guztiok, aipatutako orriak betetzen, bai alegin gaitezen ingurukoek bete dagiezan be. Egia esateko EUSKERAZALEAK eskatzen dauskuna, ez da arazo astuna.

Euskeraren etorkizuna ikastoletan datza, batez bere gaur gure izkuntza dagoen egoeran. Euskal mintzaira zorragarria ez da iraungo negartien erostakaitik ez eta zentzungabeen amets zoroakaitik.

Izkuntzaganako maitasunak eraginda, gure naimenaren indarrak emongo dausku aurrera ekiteko kemena. Etengabeko burruka gurea, asaben berbera iraunarazteko. Esian arturiko basabere baten antzera bizi da gure euskera, uxatua, igeska, bideetatik odola dariola, gosez eta egarriz aunaturik, iñoiz agertzen ez dan aterbe epel baten ziurtasunaren begira...

Or-emenka asi dira gure izkuntz gaixoari, ziurtasuna damotsoen aterbeak agertzen... Gure ikastolak gero ta obeagoak, gero ta ugariagoak, eta gure gogoan udabarriko eguzkia bezela agurtu dabez. Gau luzean argitxu bat ikusi da; goizaldiarena izango ete...? Argi beteraiño bide luze bat zabaltzen da. Goakion danok bat eginda, egunero zeozer egiten dogula aurrerako indarraldi ontan.

«Euskera yalgi adi plazara...» urte asko dirala oiu egin eban Bidaso'z araindiko gure Etxepare aundia. Bai, erri guztien plazatara, kaleetara, batzarretara urten zaitez... gure izkuntz itzia, baztertua, gure errauskiñe zoragarria. Yalgi adi, danok ikus dagikegun ire edertasun bardingabea.

Ikastolak... orra or agertu barria dan itxaropen bizi bat. Alegin gaitezen dana-dala ikastolak sortzen. Bakoitzak bere aalmen neurriaz baiñan aalik geien.

Ez da asko EUSKERAZALEAK eskatzen dauskuna, orritxu bat, besterik ez. Eurek bere gain artuko dabe egiteko astunena: laterriko Irakaskintzari ikus-arazi erri bat bezela, irakaskintza gure izkuntzaren bidez artzen yatorkula, ta bidezkoa dala elburu orretarako dagokion neurriak.

Euskera museoko pitxia izan daiten ez dogu nai. Plazara urten dagian gura dogu.

POZAK ETA KEZKAK

Euskaltzaindia, zaindari ala ez, ala zer?

* * *

Euskera arloan, Euskaltzain-buruak gaur bide bat artu dute. Zuzena dan ala ez auzitan dago, buru diran oiek baiña ez dute besteen eritxirik onartzen. Jokabide guztia elburu bat lortzeko dala argi dago, «gazte» batzuk ariñeketan aukeratu duten «batua». Erriaren euskerea edo euskalkiak ilten itzi edo ito, ta asmatutako batu *orrek indarrik artzen ez ba'dau, Villasante, Haritchelar eta Michelena izango dira, Euskalerriaren aurrean, errudun. Zergaitik? Beste bide guztiak itotzeko egiten diran alegiñak bedeinkatu ta izenpetutzen dituelako. Gero,* ez esan ezetzik!

* * *

Adibidez, iztegia —ez goaz illen izenak barriro aipatzen— baiña Otsailleko Euskaltzaindiaren batzarrean erabakitekoa zan «gorputz» ala soiña erabiltea. Ba, Epailleko batzarrean, Michelenak bere eretxia sartu nai izan dau, ta besteenan gaiñetik «gorputz» ori sartu naian idatzi dau, bertikalki, *alegia.*

* * *

Antropoloji II Asterako, Michelena izan da Izkuntza Irakaskintza maian izango diranen aukeratzaillea. Guk dakigunez, Lekuona jaunak eta beste batzuk ez dute sartu nai izan, jostaillutzat artuak izan ez daitezan. Lerro oneik idaztean, Mokoroa Aita'ren jakituri guztia bakardadean izango ete-dan bildur gara. Ederto *aukeratu ditu «moderadoreak» bere laguntzailleak.*

* * *

Aste ori dala-ta, urrengo Euskaltzaindia'ren batzarra Bilbo'n izango da... Gaien artean, aditz «batuaren» gora-berak Aita Berriatuak eta beste bik txosten batzuk irakurriko ei-dabez, Aita Berriatuaren mordoillo zaletasuna ezaguna da aspaldi. Bermeo'n egonean, Eleizako itzaldietan, erri xeak baiño askoz «erderakazo» geiago sartzen zituan. Orain aditz «batua» eskeñiko dausku... eskerrik asko! Praille batzuk ankaz-gora dabiltzanik ez dau iñork ukatuko, Kristo'ren irudi itunagorik ez dogu iñoiz aurkitu, bera «korrektore» dan orretan baiño.

* * *

Ori dok Josea! Ezkondu ala mutxurdin? Ezkondu ezkero lana egin bear. Iñoren kontura jana ta loa aukeratzeko, mutil zar jarraitu bear. Naikeri biok alkartu ta eskuratzeko, besteak be ezkondu zirala esan ta akerrarenak ezarri... Txakurrak azurra ames, baiña mendira joan gura ez. Hitler'ek izkotarako gertatuetarik batzuk, sasoiko oindiño...

PIPER-ZIRI

LUTERO TA EUSKERA «BATUA»

Euskera batua dala ta eztala, moda egin da aspaldian Lutero aitatzea. Leenago banaka batzuk, aldizkari baten, beste Europa'ko izkuntzetan zer jazo dan ikusiaz, gure Euskereaganako «konsekuentzi» batzuk atara bear dirala uste dabe. Ori dala ta, Alemania'ko izkuntzaren batasunak ta Lutero'ren asmo ta alegiñak, euren artean daukiezan zer ikusiak autura dakarzkuez.

Bigarren eskuko eretxiak ikusi bearrean, batek zer nai dauan jakiteko, bere esanak ikustea bear bearrezkoa dala deritxot. Eta Lutero'k zer nai dauan edo ta zer diñoan, nire ustez bigarren eskutik baiño eztogu oraiñartiño entzun.

Berak esana irakurri dagigun ba, eta orduan bear bada, gure Euskereaganako ondoren batzuk atara geinkez.

Bere bizitza laburrean asko idatzi eban Lutero'k. Era guztietara. Bai latiñez, bai Alemania'n erabilten ziran dialekto askotan. Bere lanen Ediziñorik onenean (Weimar'ekoan) gure Espasa'ren antzeko larogei liburutan agertzen da berak idatzi ebana.

Baiña guretzako importanteana, dana ikusi daigun: Etxean, Bazkal-ondoan eukiriko autuetan («Tischreden») eta batez bere lan laburtxo baten (Sendbrief vom Dolmetschen», au da «Zelan izkuntza batetik bestera itzuli»), Lutero'k berberak esan dausku berak egin dauana, ta bere eretxiz, besteak, itzultze ori dala ta, egin bear leukiena.

Lantxu orretan zer diñoan entzun dagigun:

> **«Alemana dala ta, eztaukot nik aparteko izkuntzarik. Erriak darabillan berbetea darabilt, aleman guztiak, goikoak eta bekoak, ulertu dagizten. Orregaitik Sajoniako Adminiztraziñoak erabilli oi dauan izkuntza darabilt, izkuntza ori Errege ta erregeordekoak darabillen berbetea dalako...»**

Eta erriaren izkuntza erabilli bear dala, argiago erakusteko, ara zer diñoan:

> **«Ezta latiñetik berbarik berba itzuli bear, asto orreik egiten daben lez. Ez! Entzun egin bear da zelan egiten dauan berba amak etxean, umeak kalean, gizon normalak merkatuan. Begiratu egin bear jako eztarrira, zelan berba egiten dauan ikusteko. Eta onelakoa izan bear da gure alemana, itzuliten dogunean...»**

Jakiña, Lutero etzan baserritar uts bat, gizon ikasia baiño. Orregaitik eztau idatziko berak erriak berba egiten dauan lez, beste barik. Baiña bai, erriak ulertuteko modura.

Au da, izan be, Lutero'k daukon prinzipiorik beiñena, apartekoena. Ez dautso ardurarik emoten ori egiñaz Alemania guztirako izkuntza bat egiteak edo beste bat geiago egiteak. Ardura orreik Lutero'gaz zer ikusirik eztaukee. Beste batzuk ziran aren ardurak. Erriak, eskolarik ez eukan erriak, Liburu Santuak irakurri egizala, au zan Lutero'ren ardurea. Eta orregaitik idatzi eban Biblia erriko edonork ulertu eiken izkuntza batean.

Gero bai, izkuntza ori ain ederra zalako, ain bizia, ain errikoia, eta bai ta Biblia etxe guztietan, edo askotan beintzat, eta batez bere Protestanteen eleizetan irakurten zalako be, Lutero'ren izkuntza Alemania'ko izkuntzaren sustrai, oiñarri, jarraibide biurtu zan.

Ori olan dan ezkero, eztot nik ikusten zer ikusi daukan Lutero'k Euskera batua defenditzen dabenakaz. Batez bere kontradiziño bi ikusten dodaz bien artean:

1.—Lutero'k erriarentzat idatzi eban, Ebanjelioa ondo ulertu egian. Gure Erri-Errebisteetan erabili oi dan «Euskera batua» erriarentzat dala, nork esan daike? Nik beintzat ez.

Nire etxean, Euskalerriko etxerik geienetan lez, euskerazko gauzetan erdi analfabetoak gara. Baiña lenago Bizkai'ko euskera «senzillotxoan» idatzita egozan errebista eta orriak, zelan edo alan irakurri egiten genduzan. «Euskera batua» agertu dan ezkero, iñoiz be ez. Oso gatx egiten jakulako. Beste berbeta bat ikastea lez egiten jakulako.

Ta ara, gitxi ba'gara be, oraindiño batzuk ba gara euskeraz egiten dogunok. «Euskera batu» izeneko «Laboratorio izkuntza» orregaz, gero ta gitxiago izango gara, euskeraz idatziriko gauzak irakurteko gogoa eukiko dogunok. Ta ori gure erriarentzat tamalgarria litzake.

Gitxiago?, esango dau batek baiño geiagok. Eta orduan zelan esplikatu aldizkariak azkenengo urteetan artu dauan indarra? Argiak eztautso iñori kalterik egingo. Nire eretxiz, arpidedun izatea ta errebistea irakurtea, gauza bi dira. Askoz ez ni bakarrik, arpidetuta gagoz euskera gauzeari laguntzearren. Baiña, askoz beintzat, ez errebistea irakurten dabelako. Bestela pentsatzea, basamortuko txoriak egin oi dabena egitea da.

2.—Lutero'k erabilliko berbetea etzan gertu ta zabaldu goitik beera, beetik gora baiño. Nik diñodana ondo ulertu mesedez. Eztot nik esan gure ez jakoh lagundu bear gure euskereari, ez. Laguntza bear dau, iñork bear izatekotan Baiña latuntza ori beetik emon bear jako. Au da, euskeraz berba egiten dauan erriari lagunduaz. Eta erri orrek eztau «Euskera batua'z» berba egiten, bizkaiaraz, gipuzkeraz, eta abar baiño. Nik dakitela, «Euskera batu» zaleak darabillen metodoa, Atatürk'en Turkia'n baiña ezta erabilli. An bai, an goitik (gobernuak aginduta) egin zan «turko batua». Beste erri guztietan, batasun ori beetik etorri da. Beeko batek, Lutero'k Alemania'n, Crammer'ek Inglaterra'n, eta anelan beste errietan be, aparteko obra idatzi ebezalako, gero erri osoak ontzartu zituzan obrak idatzi ebezalako. Baiña ez, orduko jakintsu edo sasijakintsuak, nai ta nai ez eureik laboratorio baten asmauriko berbeta bat, edo erriak ulertuten ez eban berbeta bat, erabilten erabagi ebelako.

Bestela, bildur naz ez ete dan euskera bizia, erriak (bai Bermeo edo Markinatarrak, gure atso ta baserrietako umetxoak) egiten dauan euskerea galduko. Eta galduriko euskera biziaren ordez beste euskera bat, ikastoletan (laboratoriotan, parkatu) ikasten dana ipiñiko dogu.

Euskera batuak, nire ustez, ez leuke lenengoko maillako objetiboa izan bear aurrerago edo euren euskalkia (alfabatze ondoren!) ezagutzen dabenentzako bai objetiboa izan bear leuke.

Amaituteko, ipuiñ bat. Gure Euskalerriko erri txiki baten, baserritar bat pobre, guztiz pobre bizi zan. Bei bat oillasko pare bat, solo tixki bat baiño geukazan. Eta bera bizi zan baserri etzan palazio bat, txabola baten antzeko etxe zimel bat baiño. Auzoan bizi zan baten baserri ederra ikusiaz, inbidailda egoan. «Orrelako etxe bat, ba'neu!» Eta, zer otu jakon? Lenengo, eukan txabolatxoa bota. Gero, baserri bat, alkoak eukan lako baserri eder bat, egiteko asmoz ebillan. Badakizue gure baserritarrak non pasaten dauzan oraindere gauak? Erriko eleizpean. Baiña atean, oillazkoak iges egin dautsee, ta beia be nun euki ez eukala ta, ia dudazaldu bear izan dau.

Antxiñekoak iñoen lez, «Intelligere pauca...». Argi dagoanari gauzak zeuzargi ipiñi ezta bearrezko.

BEDARU

OARRA:

Artikulo au aldizkari baten agertzeko idatzi gendun. Bertako zuzendaritza ez eutson ondo eretxi argitaratze ori «Agur»'eri eskarrak emoten dautsegu artikuloa berton argitara etortea ontzartu daualako. Oar au bearrezkoa zuuste dogu artikuloan agertzen diran gauza batzuk ondo aditzeko.

EGILLEAK

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

EUSKALDUN NESKATILLA

Amaika mozolokeri esan da ta esaten da, neskak dirala ta eztirala. Eta onetan, gizon jakintsu ta ezjakiñak, biak, dabiltz alkarrekin!

Batzuk diñoe: «emakumeak etxean, ume-zain...»

Ai, asto-kirtena! Gure korta-baztarreko astarrak ik beste zentzun beintzat ba-jaukok!

Sasi-jakintsu bibote-erreak, gauza aundi bat asmau ba-leu lez diño:

«emakumeak buru gutxi ta biotz larregi;
iñoiz be ez, gizartean aurrelari;
gizakumearen menpean beti... ta abar».

Gixajo negargarria! Gaberdiko auntzen eztula zoliagoa dok, saguzarraren esnea erandako gizontxoaren «miaua» baiño!

Eta emakumeak indartsu jagi yakuz, ainbeste lelokerien aurka; eta kontuz gizonok, emakumeak erpa zorrotzak jaukezak-eta!

Emakumeen azken-txilioa auxe da, berba gutxitan: «Gizonak eta emakumeak eskubide bardiñak dabez»!

Biotz eta buru jarriko dituez, esaera au aizearen aoan zabaltzeko, naiz ta lapikoa sutan erre.

Ta eztago txarto, baiña ez uste izan, munduaren biribiltasuna agertu dozuenik! Onetzaz, antxiña konturatu ziran eta baita gizonen eskubideekaz be. Gizasemeak garean ezkero, eskubide bardiñak doguz, bai ar ta bai eme. Baiña eztaukaguz edo nik beintzat eztaukadaz bardintzat emakume ta gizonen eginbear, zeregin, ekintza, bizikera ta izakerak.

Oillanda gazteok gogoan artu au: Gizonarentzat egokiagoak dira lan gogorrak, izatez indartsuagoa dalako; baita gizarteko ardura astunak, geienbaten almen geiago dabelako.

Bestela, barriz, Urkiola'ko Antonio'k gorde dagiala gure zekorrak egin daben txala!

Emakumeak, gizartean eginbear arduratsuak dabez, baiña ez gizakume lez, emakume lez baiño.

Neskak neskatara, mutillak mutilletara ta atso zarrak atso zarretara. Bai jauzkeran, bizikeran eta arduretan. Bakoitza bere arloan.

Ba'leiteke emakumea gizartearen zuzendaritzara eltzea.

Banaka bat ba-dira: Golda Meir, Indira Gandhi, eta, ain urrin joan barik, geure etxe barruan be bai: gizartearen oiñarri-eutsigarria ta abe ikaragarria!

Geiago ba legoz, barriz, oba baiño ez; gizarteari berotasun apur bat ezartzeko.

Onez gaiñera, emakumeon aurrerakuntza bear-bearrezkoa da; baiña beti be, nortasuna agertuaz, ez mamalekerien menpean jausiaz.

Euskalerrian, zorionez, ba-doguz neska jator eta nortasun aundikoak, naiz ta gorengo maillan jarri ez; baiña bai ainbat eta ainbat ordu, iraupen izugarriz, teillatupean egindakoak. Eta zer dala-ta? Euskerea ta erria benetan maite dabezelako. Onexen eskuetan dago euskeraren etorkizuna!

Euskerari eztautsoe aurrerakada aundirik emongo, oillanda gangartuen itxuran, burua agertu naiez dabizanak. Baten bateri entzun dautsadan lez: «olango bategaz ezkondu baiño naiago burua errekara bota».

Nik orrenbeste eneuke esango, baiña bai dirala maitagarriagoak beste neska areik; eta enoa esaten nortzuk diran, txarto bear leukie-ta!

Neska arein aurrean, Bilbo'ko gizasemerik ospetsuena be jausiko litzake, naiz ta emakumeen aurkakoa izan! Onegaz eztot esan gura, neu jausi nazanik, baiña jakintsu ta ezjakiñ guztiok daroagu ametsezko neskatxaren bat buruaren biotzean; eta neskak be danak darabilzue gizonezkoren bat biotzaren buruan.

Au siñistu gura eztabenak, eguzkitan dagoan txakurren arrauziari begitu!

EGUZKI

TXISTU TA DANBOLIÑ

Geurea da-ta

Erri bakoitzak bere izakerea dau: bere oiturak, bere jolasak, bere kantak, bere dantzak. Galtzean beste erri bat izatera dator.

Euskalerriak be bereak daukoz; bere-bereak diran kantak, jolasak eta dantzak. Urteetan eta gizaldietan zaindu izan dabez gure abesti ta dantzak, ta atzerritarrak, kanpotarrak eurek be asko goraldu. Gure abeslariak eta dantzariak Europa ta Amerika zear ibilli diranean garaipen aundiak lortu izan dabez. Bilbo'ko *Olaeta* neba-arrebak, Galdakano'ko *Andra Mari*, ta Begoña'ko Karmelo'n neuk sortua 1951'gn *Gaztedi* talde ospetsua, beste asko ta askoren artean.

Ainbat sari eder ekarri dabez atzerritik Donosti'ko Abesbatzak. Easo ta Maitea taldeak be.

Pozarren ikusi doguz danon goraltzok eta garaipenok. Gure errietan be jendeak pozpozik artzen dauz olako dantzak eta abestiak. Urte batzuetan, geldi ta ostenduta lez egon dira jolasok, gaur baiña ainbat talde bikain agertu da.

Obeak, ona galdu

Gauza ederra jaietan-eta... meza-ostean... illuntzean... kantak eta dantzak eta jolasak... euskal kutsua dauken gure ainbat jolas ikustea. Abadeak, agintariak, atso-agureak, neska-mutillak, umeak, bardingoteak danak bat eginda pozarren. Atzerrian, Amerika'n urte mordoa eginda barriro aberriratuta, aurreskua ta dantzea ta abestiak ikus-entzutean pilpilka genduan biotza, urten-bearrean, gaiñezka.

Ain sakon, ain barruan sartzen jakuzan. Zoritxarrez baiña, gure oitura garbiok galduz doaz; galduz aurreskua ta dantzea, galduz gure kanta zar-errikoiak. Auzoko sagarra gozoagoa izan noski. Gure erriari bere izakerea kenduz goaz. Guztiok gara errudun onetan. Guztiok pekatari. Ta norbait bultzalari...

Kanpo-larrosa etxe-kalte

Orain urte mordoa itxasoz aruntz iguiñez entzuten genduzan kantak eta ikusten genduzan dantza nabarrak sartu dira gure errian. Noraiño beeratu garean! Orain urte gitxi jazoa. Non eta Elgoibar'en:

Gabon-zar egunean, bertako txistulariak plazaratu ziran dantzea asteko. Bertan ziranak txistuka... diadarka, iskanbilla gura eben. Erria nastatu: Olako dantzarik ez ebela gura; dantza lotua gura ebela. Ta dantza lotua egin zan.

Ez ete-da lotzagarria au? Ori eskatu ebenak, danak ez ziran euskaldun, baiña asko ta asko bai. Kanpotarrak zirala? Kanpotik etorri ta agindu... ostatua emon eutsen erria zapaldu... errieran eskubideak zapaldu. Euskaldunak zirala? Ainbat txarrago, ainbat lotsagarriago. Egite orrek asko esan nai dau; asko erakusten dau. Barru baltza agertzen dau. Gaurko gazteen eta gazteak ez diranen pentsaera, gurari ta asmoen neurri da.

Gazteen gauzak, esagon dabe... gazteak orixe dira-ta... Bai, buruagaz barik griñakaz pentsatu ez da? Baiña gaztediak onela pentsatu arren, gazteak ori gura arren... non dagoz?...

Betoz, betoz barriro be txitua ta danboliña gure errira... akerdeoia, kitarra... bai, bai, geure soiñuagaz, geure abestiegaz... Gure dantzak, gure kantak, gure oiturak, geure gauzak zaindu ta gorde dagiguzan.

GOIRIA

ARTZAIN - LANAK

Askok esaten dabe artzain lana ona dala, baiña nik naikoa ondo ezagutzen dodanez, artzein artekoa naz ta, orreri ezetz seango neuskio. Artzaiñen lana oso-gatxa da. Neguan denpora txarrak etorri orduan euren ardiak artu eta urriñeko errietara joan bear dabe. Udabarrian bildotsak jaioten dira eta euren lanak asi dira gatxagoak izaten. Goizeangoiz jagi bear dabe lanak egiteko, gero barrutira ardiakaz, an barrutian egon bear dabe, bai, ondo denpora onakaz, baiña txarrakaz, euria eta aizea egiten daunean eta ardiak batetik-bestera, geldi ezin diranean eta areek jaramon egin bear?

Orduan lan orren leierik iñok ez dau eukiten: jantzi busti eta janari zikuakaz eguna pasau bear dabe eta illuntzean etxera joan orduan, barriro bildotsakaz lan ta lan gero egin bear, gabean berandurarte. Beste batzuk zortzi ordu sartu eta tabernan jokoan edo televisiñoa ikusten dagozala.

Bildotsak anditxoak azi orduan saldu egiten dira eta lan bat geiago egoten da: ardi bildots bakoari gaztaiak egiteko esnea batzea.

Udabarri azkenean mendira barriro joan bear dabe denpora askorako an lan gogorra artzeko: txabolan lo egin eta egun guztia batetik bestera ibilli; domeka eta astegun erromeri barik.

Goiz guztietan ardiak topetan joan bear dabe, gero ardi-tokira ekarteko eta an esnea batu; gero esneari legarra bota eta gogortzen itziten jako, ordu batean, eta gero orregaz, esnemami orregaz, gaztaiak egiten dituez, batzuk dollaran, baiña beste batzuk eskuz eta asko kostata. Beroak egiten ditunean ardien ule-moztutea edo lanea kentzea egin bear da ta ori da ba lanik gogorrena, ainbeste ardiri lanea ebagitea. Garri guztia gogortuta geratzen dira, orregaitik bata-besteari laguntzen dautse.

Ardiai be gaizoak etorten jakez eta ondo jaramon bear jake ezpabe il edo alperrik galdu egiten dira. Lengo udan Apatx-artekoa zalata kalte aundia egon zan Gorbea'n be; ardi guztiak esnerik ez dabe euki eta, ori gitxi bada, eun ardi baiño geiago zutunik egon ezinda, eta jan barik, lurrean arrak eginda egon ziran iru artegi osoak eta beste batzuk be bai. Zotala eta osaki asko arabilli ziran baiña askorentzat arpelik dana. Artzain bat bere ardi guztiak gaizorik euki eta auto batek jo eban. Amazazpi egun berba barik eta iru illabete gaizoetxean egon zan. Bere anai batek artzain-bearra egin eban eta onek ardiak gitxi ezagututen ebazan eta txarto ibilli zan, eta eskerrak artzain lagunari, eurak laguntzen eutsoelako eta orrelan ondo urten eban.

Ez daigun ezer esan artzaiñakaitik bear asko deukee ta. Ainbeste ondamu ba'dago, artzain joan. Azkenez kalte egiten dautsee piñuak. Ez dago baso garbirik ardiak eukiteko, eta oneik dagozen lekuan piñuak jaten dabezelako, galazota dagoz.

J. ASTONDOA'K ARTZAIÑARTETIK

EUSKALDUNA FEDEDUNA ALA EZ?

Gai onen aria artu baiño len zeozer aitortu bear dot: nere Agur'eko azken idazlana ez da guztientzat atsegin izan baiña nik ori banekian. «Zelan esaten ditu Arenazak olakoak»? esan ei dabe nunbait... zelan? Aspaldiko urteetan asko ikusi, asko entzun eta geiago ikasi dodalako; ta zoritxarrez oraintsu larri-une batetik atera barria nazelako, zer dala ta? Ganorabako salakuntza paltsu bat dala ta ez dala... baiña siñestuko ete leuskiet nere kritikatzalleak? Ez dot uste, salatarien artean baliteke euren kutuntxuren bat egotea eta. Salatzeak bide asko ezagutzen ditu ta ori izan da gure aldizkariagaz egin dana, baiña itzi dagigun ori geroko. Eta orain arira: Mungi'ko parrokiko «Concordia» aldizkarian I. J.'tak izenpetuta idaz-lan bat argitaratu da; bere mamiña gitxi gora-beera au da: Euskaldunak fededunak edo kristauak izan ez arren, beste ideolojidunak izan arren (marxista, ateo ta abar aitatzen ditu) errespetagarriak dira ta euren iritzien zabalkundea egiteko eskubide osoaren jaube dira. Ez noa ezta-baidan luze edo sakonegi sartzen baiña bai zeozer esaten. Ez dago dudarik, euskaldunak beste gizasemeen antzera edozelako ideolojia onartzeko eskubideak ditu ta orregaitik errespetagarria da BAIÑA ideoloji bera izan leiteke errespetagarri ez izatea... adibidez, Hitler edo Wallacen razismoak errespetagarri izango litzakez Euskal-Errian zabaltzen asiko balitzakez? Beste oiekin ere bardin jazo liteke ta orrez gaiñera, ideoloji zabaltzeko «fededunaren» aldizkariak erabilten badira, zer? errezpetagarri da jokabide maltzur ori bere?

Euskerazko aldizkarietan zenbat olako irakurten doguzan azken urte oneitan. Zelako asmoagaz egiñak? Apurka, apurka fedea galdu eraztea, oraiñartekoa atzeratutzat (egia sarritan) eta zapaltzalletzat (baita ere) salatu ta ori dala ta dana apurtu, gizartea, sendia, siñismena, kristautasuna, dana, gero euren iritzi arrotzak errezago, obeto, sartzeko. Oraintsu irakurri dogu eleiz-gizon batek (edo izandakoak) Kristo'ri buruz idatzi dauana, eleizaren babesean argitaratzen dan aldizkari baten. «Errespeto guztiagaz» izenpetuta egon arren, ez dogu sekula nabarmenkeri aundiagoa irakurri. Kristolojia irakaskintzan edo goi-maillako teoloji aldizkarietan olako gaiak erabiltea baliteke itxurazko izatea, baiña erri xearen aurrean Kristoren irudiari Jaungoikotasun guztia kendu nai izatea, aragikeri utsean nastatzea, gogo txarragaz egiña iruditzen jaku. Erantzun errezak euki arren ez goaz erantzuten, ez gaia aztertzen, egilleak naiko egin du eta. Gutzat argi dago elburua: bizitza batzuen eredutzat Kristorena ipintea. Euskerazko aldizkariak dirala-ta goi maillako eleiz-gizon eta arduradunak ez dabe ezer esaten, ixilik dagoz zapaltzalletzat artu ez dagiezan... baiña bitartean kaltea egiña!

Guk beti pentzatu dogu abadeak ezkondu edo ez, euren eta Eleizaren auzia dala. Auzi orren azken erabakia, bere garaian, onartuko dogu eta kito, baiña eleiz gizon izateak emoten daben nortasuna «amor libre» ta beste lizunkeriak, marxismoaren praxisak obeto zabaltzeko erabilteari lotsagarria ta maltzurra deritxagu. Pertzona guztiak errespetagarriak dira baiña euskal jantziz apainduta gure artean sartzen asi diran iritziak ez dira errespetagarriak. Gure artean itsu asko dago edo obeto esateko ikusi nai ez dauan asko ta ez dago ori baiño itsutasun txarragorik. Emakume askok ez du ezer siñestu nai... «Arenazak esan du»? «Ba, gortu gaitezan»!

Errespetoa eskatzen da... baiña ikastoletan, gurasoen fedea ta eskubidea errespetatzen da? Ori dala-ta, ez da istillurik sortu? Nik baietz esango neuke kalean jakin ez dagiguzan, zuzendaritzak alegiñak egin arren. Maixu batzuk H'ak sartzen asi dira... ondoren «bestea» ziurki, baiña gurasoak ez dabe olakorik jakingo, danon izenean pentzatzen dabenak ixilpean gordeko dituez eta gero... «nik ez nekian olakorik» esan eta kito!

Ez dakit gure Euskalerria fededun izango dan edo ez, ori geroak esango dau baiña gero ori, etorkizun ori umeak dira ta nik, neureak beintzat, ez dodaz jostaillutzat erabilliko dituztenen eskuetan itziko ta ori baiño geiago, egia azaltzen aleginduko naz. Nastatzailleak seme-alabatxo kutunak dirala? Or konpon! Euskaldun fededun? fededun izan ez arren jarraituko balu euskaldun... baiña gero etortzen da ondorena; zertarako Euskalerria? Bakoitzak norberaren burua aztertu bearko dogu ta batez ere Eleiz gizon arduradunak... gero alperrik izango da.

Errespeto guztiagaz.

ARENAZA'TAR JOSU

KONTU KONTARI

ARRIGORRIAGA

Urteak joan, urteak etorri, ta naiz eta aguretxoa izan, atsegin izaten jat, Euskalerri'ko mendietatik zear ibillalditxo batzuk egitea jaiero. Oi dan lez, etxerantzean, bertoko erriren bat ezagutzea be ez jatort txarto.

Lengo baten, Untzueta ta Artanda mendiak igaro ondoren, Arrigorriaga deritxoen Bizkai'ko urira eltzea suertatu jatan. Batean ona, bestean aıa nenbillela, jo neban jubilauen «Sirri Club» egaz. Egon be, politto egoan a.

An egozan batzuk jokoan; beste batzuk, or, barriketa itzalean orruakada baten; emen be, ba-egoan nonor telebiziñua ikusten. A zan a agurekadea! Baiña eurekaz bat egin ta, euren erdi-erdian lotuta, ezin lei bat gazteago aurkitu. Begitu ta begitu, niretzat ikusgarria zan benetan a. Nire errian olakorik? Ezta... urriñetik be!

—Aikor, Anton!

—Kontxo!

Nik uste izango neban ba, Patxi emen aurkitzea. Nor? eta Patxi ber-bera. Gomutatzea be! Amar, ogei, ogetamar urte? Neuk be ez dakit noiz izan zan azkenengoz ikusi giñala. Urteak joan! Zelan baiña?

An egon giñan ordu bi inguru, bakotxak besteari bere ipuintxuak azaltzen; eta Eleizako gai zabalak be, an urten eban. Orretan genbizala itaundu neutson, ze apaiz edo ze... euken Arrigorriñ. Abade batzuk, Kristo lez bizi bear eta Jangoiko laxe bizi direla entzun nebala-ta.

—Iru abade jaukaguz, ta bear be bai. Ba-dakit erri txiki-txikia be ez dok eta.

—Ta... euskeraz egiten juek, edo? —Galdetu neutsan.

—Euskeraz? Ba... parrokua euskalduna dok baiña... S. Migel'eko bat be ba-jaukagu; onek... umm!

—Irugarrena nor dok ba?

—Onek euskeraz txistik be ez jok egiten, jakiña, ez jakik-eta. Gaiñera, ikesten dabizen itxura andirik ez jauk. Esan eustan.

—I, orduan ba, mezak esateko zelan konpontzen dozak?

—Parrokuak esaten jozak.

—Danak?

—Astean bat baiño ez jak barren!

—Ta nok jaukok ba orren errua?

—Nik, ik... nere ustez, abadeak... ez jakiat, ez jakıat.

—Baiña... ezarie guztora egongo orraitiño!

—Guztora... jo!

—Olan izanik, zer dala-ta zagoze ezer esan, edo... egin barik ba? —esan neutsan.

—Emen, ba-dakik zer dan onena. Ixillik, makurtuta ta, bai-bai esan danari. *Ostantzean... rrrass.*

Agur Patxi, berandutu egingo jatak-eta. Urrengo baten etorri be, iguel, egingo nok. Nun agoan be ba-jakiat-eta.

AME

ZUMETXACA

Euskal-erritik barna edonun dagerre ainbat eta ainbat baseliz, nola mendi ta egi gaillurretan arrano kabiak antzo kokaturikoak, bardin itxas ingurumarietan ere Gaztelugatxe'ko Jon deunekoa bezelakoak.

Gaurkoz Zumetxaga'ko Mikel Deunaren baselizatzaz jardungo dot.

Joan dan Epailla'ren 27'an larunbatez, basatxono ontan euskal-kutsuz beteriko ezkontz bat izan eben; baseliz onen edesti guztian, ots, 8 mendeetan, lenena ausaz. Erdi-arokoa ziurkiro ta Kristauaroaren amabigarren mendekoa elizatxo au ei da-ta. Oso baliotsua alan be Erromaniko'aren Bizkai'n idoro leiteken pitxirik ederrenetariko bat, jakitunak dirauskuenez dalako.

Elizkizunak euskeraz izan ziran. Meza-emaillea Lujua'ko Aita Pantaleon Elorduy ta opamaialdarea aspaldi batekoa, zar zarra izanik benetan, orraitiño itxura ederrekoa bera, ta beste ainbeste Mikel donearen irudi bakarraz desakegu.

Eztegukoak egun-aldi euritsua ta ozkirria izan eben, baiña bertaratu ziran guztioi poza eurrez bioiz-barnetatik erioen, ta Jata mendiaren magalean datzanez jai biribilla alderdi txit atsegingarri areitan osotu eben.

Bilbao uriburutik 24 kilometro'ra or-or, baso txiki baten inguruan, aritzez, eukalituz, lerrondoz ta izaiz esiturik ta kantauriko itxasoa be begi aurrean dagolarik zoragarrizko basatxono au dakusgu. A bai egiz mendi ta itxaso alkartze miragarria! Euskel ikuspegi berarizkoa nunbait. An ba basetxe bakan batzuk begiztatu leitekez, oneik itxas alderuntz, areik legorrera begira, ta danok alderdi guztiari bizitza damotsela.

Ezegoan orain arte arako biderik, zidor txiki batzuk izan ezik.

Egunotan orraitiño auzuneko baserritarrak kilometro bitik gorako bat ospatu dan ezkontz-elizkizunerako edegi dabe. Orrela aurrerantzean bidea zabalik aurkitu leikee mendigoizaleak ez eze baita berebillez be baseliz inguruetara egun pozkarri bat igaro bide doazen guztiok.

Euskal oiturak beruntz

Aspaldi baten euskal erriko baselizan baranoan, eleizkizunen ondoren, erriko biztanle zar ta gazte, neskato-mutil koskorrak ere batetik; ta at, kanpotik etozan erromesak bestetik euskal dantza garbiekaz ta gogaldi ezin obeaz jolasten ziran, gosarirako eroezan jan eranakaz, bizkortu ta arratsalde lilluragarri bat bertan igaro. Orain ostera aulako jai banakak aurkitu leitekez, ori bai baiña tamalez urritzen doaz ta uriburuetako dantza-leku ta gauaz ospatu oi diran jai etxetako giro lizunei bidea oparo eskintzen. Toki oneik lilluratu oi dabe gure gaztedia ere, batez be zaildu barik eta ez-ikasiak diran amaikatxo euskal gazte errukarriak ziur ziur.

Ondorenak

Agiri agirian dagoz. Oitura zantar oneik gure aberrian errotuz aspaldi bateko euskal-erri jatorretan euren bereziko euskal-kutsua galdu-erazo oi dautsee. Norena ete errua? Dan-dana gurea ez-bada be, gure zabarkeriarena beiñik-bein asko be asko baidala deritxat.

Ipiñi daiogun ba, euskeldun zurrian, bestetan lez onetan bere kalte oneri lenbait-len ta sustrai-sustraitik osakaia; bestela aldi gitxi barru gureak egin dau.

Dantza lekuekaz erdel urrut-ikuskiñagaz, erdera utsezko ikastolekaz... ta abar... euskal-kutsudun ekandu zarrak galduak dira, ta betiko galduak ezpairik gabe.

ARREGI'TAR JOSU

MUNDIK NOROKOA

II.—MORUAK-ETA

Umetako oroipenak, oroipen bakanak, nas-mas eta erdi illun ditut gorderik buru-gogoetan. Españi'ko gudatea amaitzeko egoan. Ortik sortutako giroak lagundu daust aldi aretako gauzak zertxobait gordetzen. Nere aitita zanak, Salamanka'koa bera, landetxe edo lur-sail andi bat eukan, errian, illerri zarraren aurre-aurrean. Anditasun-usaiñez natorrela? Ezta urrik emon ere, gizona. Esan bearrekoa zan ori, datorrena obeto ulertzeko.

Garai aretan egazkiñak euren lerkai bildurgarriakaz etozanean, jendea leku babestuetara joian igesi. Erriko babes-lekura banaka batzuk baiño ez, oso estua zaneta. Geienak al eben tokira.

Etxekuok etxe aretara joaten giñan, erritik alde samar. Ta antxe gogoratzen naz lurretik egazkiñak igarotzen ikusten nituala. Adin aretan ez nekian jeografiarik eta ez dakit norenak ziran egazkiñak. Zerua urdin-urdin, garbi-garbi zala ondo gogoan daukat. Gero... Baiña goazen arira. Ipiñi belarriak adi-adi ta Terentzi'k bere antzerki-gaia arildu baiño lenago legetxe: Favete, adeste aeque animo et rem cognoscite (Andria, Pro. 1).

Beste batean gudari batek besoetan artu ta inguruetako arrobi baten artzulora eroan ninduan. An jende askotxo egoten zan, estu-estu eginda. Andik laster San Juan de Dios gaixotegira. Gero Zierbana'ra gure esne-saltzaillearen baserrira. Balkoitik baratzera mailladi bat egoan, zurezkoa. Esaten daustenetik, ni goizetik gauera ibilli oi nintzan gora-beraka, besteen gogaikarri. Orregaitik orain ez noa ez gora ez bera ta kitu.

Joan ziran egun bildurgarriak eta orduko toki areik ere. Gaur egunean San Juan de Dios gaixotegia bakarrik dago zutik, naiko lur-murriztuta.

Gure etxe-ondoko Gurutzeko Lekaimetxean moruak egon ziran luzaro. Baita aruntzagoko ikastola zarretan ere. Euren praka puztuakaz-eta ez naz ain errez aztuko. Sukaldeko balkoitik, monjeen ortuan ikusten nebazan jatekoak gertatzen eta lagunartean izketan. Etxetik bertan Udaletxea. Berau ez da aldatu ezer, kanpoko ormetan beintzat.

Anartean, esan bearra daukatsut; baten be ez nintzan asaldatu, ez ikaratu, guda-giroan bizi arren. Urteak pillotu ditut bizkar-gaiñean eta gudara joan barik, datorkenaren gogoratze utsaz, dar-dar batean egoten naz. Guda madarikatuakaz beti galtzen da-ta... Ta ortxe amaitzen dira orduko goraberak eta pasadizuak... Alaz ere, lengoari ekinda, gazteago zarienen irakasgarrırako auxe: moro bat il zan eta bere lagunak, erlijio ustez, jantzita, janari ta guzti eortzi eben. Serantes-mendiaren magalean edo lurperatuz, ain zuzen ere.

Aspaldiko urteokaz barriro moro geiago ekarri dabezalakoa daukat, bestelako jazkerakin baiña.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik

Mutillari, Ogerleko ezizena aitagandik etorkion eta gure erri osoak olan ezagutzen eban. Zergaitia yakiteko, bere aita Ogerleko leenengoaren aldietara itzuli bear dogu.

Ogerleko leenengoa gauza askotan arrigarria zan. Yakite gitxiko mutilla, bere gurasoen erruagaitik noski, beste lagunekin ikastolara yoan bearrean, or-emenka arduragabe ta askebillen, bere yoerari yarraituaz. Egia esateko erru guztia ez zan gurasoeri egotzi bear, asikeran onek ikastolara yoan ekiela saiatu bait-ziran, baiñan mutillaren aurrerapenak utsik, edo utsik urren izanik, bere aukeran ibilli eiten itzi eben.

Izan bere, mutikoa ez zan adimenez osorik. Bere buruko bazterren batean zerbait ut egiten yakon, eta orregaitik urrean, bere adimenaren argia arazo batzutan ez yakon bear aiñako dizdiratsua. Beste gaietan aitzitik, bere trebetasunak ez eban kidekorik ezagutzen, eta oraingain erraldoi baten antzera yagiten zan.

Arrigarria benetan arraintza ta eizarako eban trebetasun gaillena. Begia nora, ara bertan yoakiozan bere yaurtigaiak edo arrikadak. Gizasemerik izan ezik, igitzen zan guztiari, edozebota bear izaten eutson. Bere xardi itzela une artan ez ba'lekar, arriren bat eskuan artu ta erdi-erdian yo. Bera agertu baiño ez, txakurrak eta katuak izurrituta bai'litzan, igesari emoten eutsoen. Aspaldi batez gure errian katu asko gitxiago ikusi ei zan. Batzutan erriko argi-ontzin bere opari-gaiak izan oi ziran, beste gauzarik agirian ez ba'litz.

Arraintzan nabarmen zan gure Ogerleko leenengoa. Arraiñak arrapatzeko ez eban gau askoren bearrik. Aga bat, zegokion aria amuagaz, eta au bai garrantzi aundikoa, aroari yatekon benetako amuzkia. Arraintzan asi baiño leen, orduak eta orduak ibai ertzean yarrita, uraren gaiñaldeari adi-adi begira oi zan, zelangoak ziran arraiñak arrapatzen ebezan mamorroak yokiteko. Ba-ekian gure mutillak aro bakoitzean arraiñen arrapagaiak besteratzen dirala, ta beiraiñen mamorro kutunena zein zan yakin ondoren, gure arraintzaleak benetako amuska baliaturik, nai aiña arrapatu oi eban. Ugoldeetan, erritik urruntxu egoan ibai-biurgune batetik, txitxare korda luze bat ustiatuaz, aingiraketa itzela ataraten ebazan. Gure ibaiko aingiraospe aundikoak ziran, eta mutillak erraz saltzen ebazan erriko yatetxeetan.

Mutil onen bizitza beraz, basatia ba-zan bere, ba-eban aize-zabalean artu oi dan lillurabereizi ori.

Bein batean, mutillaren aitak dendatik untz batzuk ekarri egiozala agindu eutson, eta dirixeerik izan ezik, zidarrezko ogerleko mardul bat emon eutson, esanaz:

—Atzerakoa ez galdu gero e...?

Izan bere, untzak eta atzerakoa ez ebazen galdu, ogerleko osoa baizik. Bai, mutilla bidean yoian ogerleko estu-estu ukabillean oratuta, ta ara nun sasi batean kokatuta zozo bat ikusi ebala. Txoriaren itxura lotsagabekoa mutillaren naimena baiño indartsuagoa zan eta txoriaren eupadak eta eizarako zaletasunak itsu eginda, besoko abiada itzelaz ogerleko ederra yan eutson eta erdi-erdian yo bere bai. Zozoa, tutik esan barik zerraldo amildu zan. Alperrik zirabaiñan mutillaren alegiñak ogerleko igeskorra aurkitzeko; zidarrezkoa ez zan iñundik agertzen eta amaika alperrikako azterraldi egin ondoren, etsia, zozoa, eroiala etxeratu zan, aitak ogerlekoaren ordez txoria artuko ba'leu berekiko ausnartzen ebala.

Aitak zozoa artu eban, eta mutillak aitak atzekaldean emondako ostikada itzela bere ba Tximista alakoa, gure eiztari aundia iñoizkorik ariñen mailladitik beera kalera aldu zan, aitaleio batetik iñotsola:

—Ogerleko barik ez aiz etxean sartuko, astokillo ori...!

Orduak yoan, orduak etorri, mutilla etxe-aurretik ibilten ari zan, baiñan sarreran ain bere zain egoan, izterra baiño lodiagoa zan makil bat oratuten ebala. Mutil gaixoa etxe-aurrera gelditzen zan bakoitzean, aitak esaten eutson:

—Ekastazok ogerlekoa, bestelan...!

Eta olan illuntzea eldu yaken. Erriko zenbait gizaseme erukitsuek, mutillaren larri-alditan entzun eben eta guztien artean eske-batza bat eratu ta azkenean mutillaren eskuan ogerleko bat ipiñi eutsoen.

Gau artan aitak zozoa apaltzen ebala, mutilla ijito baten txakurra baiño goseturik, aobadarik artzeke oeratu zan. Arrezkero, erriko guztiaz mutilla Ogerleko ezizenaz bereiztu eben.

Gaztetasuna yaritsi ebanerako, Ogerleko ospe aundiko arraintzale ta eiztaria zan. Zuzaar eta erdoitsu bat erabillela, egaztien zigorra zan, bai ta Lizarmendi'ko erbi ugariena ben. Adimenez baiñan ez zan ainbeste ospetsu ta ernaia.

(Jarraitzeko)

AGIÑALDE'KO TXEPETXA

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

Lenengo Jaun-artze ta ikastola amaikerako azterketa-erabagi onak saritzeko, emen daukaguz, gertu-gertu, aurrentzako ipuin, irakurgai ta ikasbide sail ederrak.

Zure emazte zurrak be, pozik artuko leutsukez bere sukaldeko zeregiñak ondo bete ta jan-era barriak aukeratzeko, guk, zuen ardurea gogoan darabilgunok, argitaldu doguzan idatz-lan gorengoak.

Ta zure idatz edo irakur lanetarako, azterketa sakon eta jakingarriak beteko, emen daukaguz edesti, izkuntza, jakintza ta edozelako gaieri buruz argitaratu ditugun idazti ederrenak, asate baterako «Peru Abarka» ta, danen gain-gaiñetik, Azkue aundiaren Iztegi erraldoia.

Ta barri-barria, Antropoloji I Asteatzaz IDAZTI Nagusia.

Idatzi: Prim, 43-3.º, Bilbao-6.

Deitu: 24-33-01 edo 23-66-05 urrutizkiñetara.

Edo edozein idaz-saltokitan eskatu.

KIROLAK

ANAIARTEKO JOKABIDEA

Gaitzak gerade umiltzen
Eta pakean unitzen,
Ez da errez ibiltzen
Anayak alkar illtzen,
Zer dan entenditu gabe
Ortan galduko gerade.
Xenpelar'ek

San Mames'en egun aundia, Jorrail onen laugarrenean, begietara begira alkarri ta, anaiak anai.



Lenago be esan genduan (6'garrenean), ta gaur barriz poztu egin bear, Eibar'en asi zana Eibar'en osotu da San Mames'etik igaro ondoren: Izango al-da kirola berez, anaiak alkartu ta auzokoak ezagutzeko bide! Ta ez, zirikalari batzuk, eta edozelan euren izparringien salketa billatzen dabillazan orren alegin, susper-gaizto ta asarre-bide.

Oaringo alkartze onetan Bilbao'n eta ondoren Eibar'ko janaldian, alkar ezagutu ta, «ene badaka» ta «on-onak eta geu lakoak diuk barrenka» adizkidetu jakuz. Euregaz, estu-aldi ta ardura billa jolas-tokietara joaten diran ikusleak be alkar maiteka asiak doguz. Ba-zan ordua!

Alegin onetan gizon-emakume jator asko ikusi ditugu. Bata aipatuko dogu emen gaur, onek ez dau bakerik izan anaiak alkartu ta maitasunean lotzea lortu arte. Bera be, burruka aundiak egindakoa dogu, zuri-gorrien oberako burruka jatorrak. Gaur, ekiñaldi a gain-gaiñetik ikusten dabela, kirolak asarrerako baiño anaitzarako jokera berezkoa dabela igarri dau, ta lengo ta urrengo ulert-eziñak bein-betiko uxatu gura leukez. Bejoindezula, ta zure asmoen euskarri AGUR'EN lagun asko izango dozuz!

Ta, irakurle, zuk be danoren barri jakitea naiko dozu-ta, datorren zenbakian, datorren amabostean J. l., aleginduko gara orren zintzoaren iritzi ta egin-bearren barri, bere itzetan ekartzen.

Bitartean, ba-doa gure Atletic au erbestera, bere jakituria erakusten. Sarri, edo beti, joana-joan ta irabazi ete dabenaren ardurea bakarrik izaten dogu. Oraingo onetan, naita garrantzi aundiko ostikoketea izan ez, «etsai» orren barri batzuk emongo dautsuguz: West Bromwich Albions —Bromwich sartaldeko zuriak—, jorrail onen erdian, 18'gn dabil lenengo ostikoketa saillean, bostgarren atzetik asita. 29 ale lortu dauz ogetaamasaspi joko-alditan; 54 gol alde ta 67 aurka, sail orretan geien aurka, urrengoak ba, Blackpool'ek (22'gn), 60 ditu. Azkenengo bost joko etxetik at orrein artean, irutan parra ta birritan galdu egin dau. Aurtengo jokoaldietan amalau bidar parrean atera da. Itxuraz, aurretik atzealdetik baiño indartsuagoa da. Etxean jokatu dituan azkenengo irutan ez dau gol bakar bat be sartu, beerako bildurrez edo, gizon geienak atzealdera bialtzen dauz, Brown bakarrik aurrean laga-ta. Atzenengoan, il onen 12'gn Ipswich (19'gn)'akin 0-1 galdu eban, ta aurrerakoa, etxean au be, illaren 10'gnean, 0-0 Coventry (13'gn)'kin. Ona emen bere gizonak: Cumbes; Hughes ta Merrick; Cantello, Wile ta Kaye; McVitie, Brown, Astle, Sugget eta Hartford.

IZAR

MENDIAK LORAN

NEGU

Eskualde askotako mendizaleak erdi geldi egoten dira neguan, edurretako kirolak egiten dabezan batzuk izan ezik; baita udabarria pizkat goratu arte be. Ez da ostera bardin, euzko mendigoizaleen artean. Oneik, gitxi edo asko, ez dagozalako ezer egin barik neguan. Mendi andirik igoten ez ba'dabe be, erri inguruko edo auzoko mendiak zear dabiltzaz, geien batzuk beintzat, orrela udabarrirako gertuta, ibilketa luzeago ta gogorragoak egiteko. Ori dala bide, mendigoizale bazkun askok, batzuk banaka ta beste batzuk bazkun-taldea alkartuta, urtero mendiko ibilketa-neurtuak edo bazkunen arteko ibilketa-neurtu andiagoak egiten dabez, gero, udabarri goirantza edo uda asieran ibilketa andietarako trebetuak aurkitu daitezan.

Urtero, Arrigorriaga, Basauri, Galdakano ta Lapeña inguruan, erri orreitako Padura, Baskonia, Ganguren, Edesa ta Osea bazkunen babespean, urtekoa euretariko batek, bazkun bakarrak eralduta egiten da.

Aurten, Padura'k gertau bear eban, eta Epaillaren 28'gnean, erri kiroldar ori inguratzen daben mendiak zear ospatu zan, Arrigorriaga orri bira-biraka osoa egiñez; bost ordu ta geiagoko ibilketea izan zan. Neska ta mutil, gazte ta zaar, berrogei ta amazortzi bikoteak egin eben ondo eraldutako ibilketa guztia; adorerik andienaz amaitu be danak.

Gorago, «gazte ta zaar» ori aipatu dogun ezketiño, au esan bearrean gara: ba-zirala ibilketa ori gaztetasunik kementsuenaz egin eben irurogei ta zortzi, baita irurogei ta amabi urte euren lepo zuzen eta ariñean dabezan mendigoizaleak, beraz, edozein adiñekoak, urteak aintzakotzat euki barik, mendi-kirolak egin daikeezela erakusten. Nai izan ezketiño, jakiña.

UDABARRI

Baiña udabarrian, mendigoizale bazkunak urteroko euren jaitxuak ospatuten dabez, urtebarruan bazkideak egin dabezan leiaketa ta beste egikizun urtenenak sarituteko egiten diran jaiak; gazteleraz «finalistas»'en jaiak

Lenago aipatu doguzan bost bazkun orreik —beste bazkun talde batzuk be bai, ta noz edo noz euren barri emongo dogu bear ba'da— orretariko jaiak egiten dabez. Geien baten, Zaratamo goierri alai baketsuan ospatuten dira, bostak batera alkarturik. Baiña, aurten, Arrigorriaga'ko Padura'k zidarrezko ez-



teguak ospatuten dabezan ezketiño —sortu ziranetik onako ogei ta bostgarren urtea— euren erriko enparantzean edo inguru artan izatea nai dabe, ta orretara izango da, euren bazkunai merezi daben gorapena emoteko, ta mendirako zaletasuna errian zabaldu. Datorkigun Orrillaren bederatzigarrenean izango da.

Es dago esan bearrik, mendigoizaleak eralduten dabezan jaia guztiak, bear dan lez, euzko giro utsekoak izaten dirala, txistulari, dantza ta abar, benetako alaitasunez eta anaitasunik andienaz ospatzen diranak. Aurtengoa be, gure oitura garbi ta zindoen onerako, orretarikoa izango da. Onetariko beste jai askotan legez, bertan, lagun zaar askorekin besarkatuko garalakoan gara.

Gora arrigorriagatarrak! Eta ea jai bikain bat eralduten dozuen!

ALTUNA'TAR JOSU

IKASTOLA, EUSKERAREN GAZTELU

Nork esan bear zigun Naparro zarrean, euskerazko ikastolak ezereztik sortzen ikusiko geniatuanik?... Ea euskeraren azia ango lurrean zearo galdua zegolarik, mendialdeko erritan izan ezik, Auñamendi aldean deadar bat entzun da. Karloman eta Erroldan'en denboran bezala, turuta doñura beren barruan asaben deia nabaitzen dutenok bildu dira, eta lenago gaztelutan bezala orain ikastoletan elkartzen dira, napartartarren euskaltasuna aldeztu naiez.

Ekaitz gogorrak jasan izan dituzte aspaldiko urteetan baiñan giroa zerbait ontzen joan dalarik eta eguzki izpia agertu orduko Naparroa'ko errialdetan ikastolak eta ikastetxeak zutitzen eta ateak zabaltzen ikusi ditugu. Burunda'n, Baztan'en, Larraun'en, Estella (Lizarra'ko) urian eta baita arriberaruntz Tafalla'n ere. Xume eta apalak txikitan, altsu apain eta sendo Iruña'ko uri nagusian, benetako ikastetxeak Naparroa'ko Universidadearen antzo.

Kultura lan guzti au «Prinzipe de Viana» elkargoaren ardurapean egiña da, Naparroa'ko Foral-Diputazioa buruzagi duala. Esan zagun ordea, lan orren sortzaille, eragille ta biziemaille guraso eta euskeltzale diran familiak ditugula beren aurrak kristau eta euskaldun ezitzeko asmoz.

Ez nezake emen aitatutako ikastola guztian xeetasunik eman; zer nola guztiak adierazteak luze joko bait luke.

Bat aipatuko dut, soil-soilik beste guztien eredutzat ar ditekena eta izen eder eta maitagarri batez deitua: «MARIA PAZ ZIGANDA'ren IKASTETXEA».

Mundu ontan bizi zalarik jainkozale ta euskeltzale gartsu izan zan andereño aztu eziñaren izena da. Eta bere deituraz Ikastetxea bataiatzea merezi duana. Eta onela gertatu da zorionez. MARIA PAZ ZIGANDA'ren ikastola oparo eta ederrak zabalik daude eta lanean ari dira euskaltasun eta kristautasunaren alde. Bi jaidura auek bete bait zuten aren biotz suar eta zuzena.

Oni esker Iruña'ko guraso fededun eta euskaltzealeak ba-dakite beren aurrak nola bidali. Eskola-lan eziketa ta ikaskizunen aldetik ere aien naiak alik eta ondoen batetzen leiatuko dira. «MARIA PAZ ZIGANDA» ikastetxea Iruña zaarretik urbil MUTILOA Azpian Tajonar bidetik joan da dago. Leku osansungarrian, kaputxino-praile «nimiñoak» (minimoak) an eraikia duten jauregi ederrean. Muñozabel eta agirian, ikusbegi alaia inguru guztian Iruña'ra begira. Ikasgo-gelak otordu-leku, jolas-zelai ta aterpe ta babesak erruz daude, iñongo erri aurreratuen maillakoak; eta erdeldun eskoletakoak bezain onak. Gaurko eskola-legeak agintzen duen eran Batxiler ixturioak eskatzen dutena aurrei erakutsiko zaie.

Ikastetxearen buru Mikele GASTESI andre Maistra asko-ikasi eta ikusia, aspaldidanik lan ortan dabillena ta orain arte Iruña'ko ikastolatxoan ederki jardun izan dana. Aren esanera daude: Ana Goñi andereño luzaidetarra; Eneterreaga, leskarrak, Zelaieta, Gorostiaga, Pagola ta Irigoien.

Eta orobat beste gañerako laguntzaille: guraso, jaun-andre apaiz eta laiko Maria Paz Ziganda Ikastetxeari eusten diotenak.

Ekin eta jarrai aurrera!

Berreun aur inguru dabiltza Maria Paz Ziganda ikastetxean eta datorren ikastorako asko ugarituko diran ustean daude buruzagitzako andre-jaunak.

Alegiñak egingo dituzte, beintzat orrela gerta dedin. PRINCIPE DE VIANA elkargoaren laguntzak ez diela utsegingo uste dute Naparroa'ko Diputazioak aukeratutako agintarien bidez.

Oso pozik irten giñan Maria Paz Ziganda ikastetxera egin genuen ikustalditik. Udaberriko goiz argitsu artan ortzgarbi ta aizea piñ zabillen; alare, itxaropen beroz geunkagun biotza. Onelako babes-lekuak bear ditugu eguraldi txar, ekaitza ta etsaien erasotik gordetzeko.

Gai oni buruz LATXAGA donostiar idazle bikañak artikulo ernegarri batzuek idatzi ditu; Eliza bakoitzaren ondoan ikastola bat eskaturik; eta ELIZA ta Euskal-Kultura elkarrekin joan bear dutela adieraziaz.

Baiki, etorkizunerako ondo neurtu ta umotua egin bearra dago Euskal-Erri guztian zabaldua. Ezin dezakegu ukatu irakasle diran giza-seme ta andereñoak lan gaitza dutela. Erraztu ta gertutzearren azken urteotan «kursilloak» antolatu dira. Eta aurten irugarren aldiz Azpetia'ko Loyola'n lengoak obetuaz Udarako Kursilloa egingo da garaiz esango diran egunetan. Ez da aski, ez. Latxaga'k oso zuzen eta egoki eskatzen duanez «Eliza Euskal-Kulturaren eskola Normala irikitzera bearturik dago». Bat gatoz Latxaga'ren eske eta asmoekin. Eliz-agintari, guraso, apaiz gazte, gizaseme irakasle, andereño urduriak, mundu barri baten kezka ta artegaetasuna dutenok nun lanegin ba-dizute. Gure gizartea obegotu ta euskalduntzeko ez da asmo zuzenagorik. Bortxakerietatik iges egiteko bide bakarra.

Izan gaitezan aurrekaoi, baiñan «progresismo» izunetik urrun, onek erdelkeri ta ezerezera eraman gaitzake. Antziñateko bide da gurea, Aralar'eko Mikel goiaingeruak zaintzen duana:

JAINKOA'ren POLITIKA.

ANTONIO MARIA LABAYEN

ANDEREIÑOAK LOIOLA'N

Azkenengo urte bi oneitan egin izan dana, barriz eta goragoko maillan, 2'gn eta 3'gnekoak, aurten be egingo da Loiola'n.

Ikastaro onetan asko ikasten da. Gaur laterri aurreratuetan darabillezan gai, era ta erakusgailluak alde batetik, eta aurraren izate, erantzun eta zaletasunen ezagupenak bestetik, zeatz aztertu ta ikasten dira. Andereiñoak, betiko ikasketetarik at, ikaskizun bear-bearrezkoak eskuratzen dabez, eta edozein irakasle arrunteren gaiñetik jartzen dira.

Bearrezkoak doguz andereiño ikasiak, ez da ba edozelakoa gure aurren eziketea; andereiño jakintsu ta zentzundunak. Ta Loiola'ra datozan erbesteko irakasleak, sakon erakusten dakie.



Ikastaro au, Dagonilleko lenengotik amalaugarreneraiño izango da, ta bertara joan gura leukenak, bota bei bere izena, Bagilleko amabostgarrena baiño len. Nora?: Edili, calle Guetaria, 21, San Sebastian.

Sarrerako ordainketea milla pezeta da, izena emoterakoan ordaintzekoa. Aurreko urteetan ikastaro areitan izan ziranak, bertan lortu eben agiria erakutsi bearko dabe.

Gero, bere garaian, ostatu, ikast-ordu ta gaien barri emongo da. Zeaztasun aundiagorik gura izan eskero, idatzi egizu «Edili» orretara. Bilbo'ko «Euskerazaleak»etan be izango dozu orren barri.

* * *

Ta ikastoletzaz diardugun ezkero, BEGOÑAZPI ikastolatik auxe diñoskue: Aurtengo ikastaro au, lenengoa atan be, amapekoenak ta 1'go ta 2'gn maillako ikasketak osotu dabe. Datorren ikastaroa, Urrillean asiko dana, askoz be zabalagoa izango da, 5'gn maillaraiño eldu gura da. Ona emen izpar pozgarria; Altuna'tar Libe irakasle argiaren zuzentzapean, ez da bertan-bera geratuko ta or ikusiko doguz laster goragoko ikasketak be, ori ta etxeak berak daukazan aukerak lagun, BEGOÑAZPI euskal gaztez beterik izango da, ango aize garbi, areto nasai, jolastoki idegi ta giro paketsua gazteen eta gurasoen gogoko dira-ta.

BEIZTEGI

IDATZ-LEIAKETAK

Garitonandia'tar Gotzon *izeneko ele-barri saria: Illebete barru, Orrilleko 31'gnean itxiko da sari onetan sartu bear diran lanentzako epea. Asi dira eltzen, ea zurea be laster datorren. Ordurako, epaimakoak be aukeratuko dira ta nortuk diran jakin.*

* * *

Xenpelar Saria. *Bertso-barrien sariketea. Aurrez, ingietan edo izparringietan argitaldutako bertsoak izaten dira, eta datorren Orrilleko 10'gneko zuzenbide onetara bialduak: Academia de la Lengua Vasca, «Xenpelar Saria», Palacio de la Diputación, San Sebastián.*

* * *

Agirre'tar Joseba A. Saria.—*Iru urte buru, au da 1973'gngo Epailleko 22'gn arte euskeraz argitaratutako idazti onena saritzeko. Milla dolarrekoa da saria. Idazleeri auxe eskatzen jakoe: epaiketari laguntzeko ale bi bialtzea antolatzailleeri.*

* * *

Durango'ko Euskal-Jaiak 1971.—*Sariketa bi. Bata, Julio de Urquijo'ren eungarren urteurreneko saria: Urquijo jaun orren izate, lan eta gaurkotasunez idatzitako lan onena saritzeko. Berroei milla pezetagaz saritua, baita edergaillu berezi bategaz be, ta lan ori argitaltzea gaiñera. Datorren Dagonilleko 31'gnerako bialdu bearko dira, izenordezkoz, oi dan lez: Comisión Organizadora de las Fiestas Euskaras en Durango 1971, calle Santa María, 4-1.º, Durango.*

Bestea: Julio de Urquijo jaunatzaz izparringietan agertzen diran idazlanak saritzeko. Amabost milla pezetako saria eta beste edergaillu bat be bai. Sariketa onetan sartu gura dabenak, bialdu beiz, bere lana agertu dan izparringiaren 3 ale, lengo zuzenbide orretara, ta garai berean. Durango'ko sariketa bi oneitan euskeraz be idatzi leiz lanak, beste izkuntza batzuen artean.

IBUR

MARKIÑA'KO IKASLEEN IRITZIAK

Igezko ikastaroan, nire ikasle izandako neska-mutillai iritzi-billa zuzendu naiaken, orretarako itaun-zerrenda bat eurei emonaz.

«ESCUELA LABORAL»'eko 43 mutil eta MERZED'eko ikastetxean, Batxillerreko irugarren urtea egiten ari diran 14 neska ziran erantzun ebenak. Mutillak, 15 urtetik 18'ra bitartekoak ziran eta neskak ere ortxe-ortxe; apur bat gaztetxoagoak bear-bada.

Erantzunak pizka bat jantzirik eta erdizka datozenak osoturik jarriko ditut idazlan onetan, baiña areen iritziari ezer jan edo asmatutakorik ezarri bagarik.

1.—EUSKERA galduko ete da Markiña'n? Euskelerrian?
Zergaitik galduko da Markiña'n? Euskalerrian?
Zergaitik ez da galduko Markiña'n Euskalerrian?

ERANTZUNAK:

Euneko ogetalauk, Markiña'n baietz, galduko dala. Euneko iruk, Euskalerrian ere martxa onetan galduko dala. Beste guztiak ezezkoan dagoz, euskera ez dala galduko ez Markiña'n ezta Euskalerrian ere.

Zergaitik galduko da Markiña'n?

—Emengo euskaldunak euren izkuntza baztertu ta erderara jo dabelako.
—Etorkizuna gazteen eskuetan dago ta emengo gazterik geienak erdera darabille ia beti euren artu-emonetan, Merzed'eko ikastetxean ikasten ari diran neskak batez ere.
—Leen atzerakada bildurgarria izan eban gure izkuntzak erri onetan. Gure ikastetxeko giroa zearo erdelduna zan. Ikasketak aurrera eroan aal izateko, erderara makurtu bearra izan genduan. Gure lagun batzuk ere erdeldunak ziran eta areekin!, erderaz beti. Euskaldunok alkarrekin euskeraz egitea ere debekauta geunkan orduan, gaur ez baiña.
—Guraso ardurabakoen erruz.
—Atzerritarrak etorri ta etorri ari diralako, eta guk areek etxekotuten ez dogulako aalegiñik egiten.
—Euskaldun asko euren izkuntzaz lotsatzen diralako.
—Euskerari ta euskal-gauza guztiai, goikoen aldetik burruka egiten jakelako.
—Geu gabiltzan Merzed'eko ikastetxe onek darabil ia-ia Markiña'ko gaztediaren erdia ta erri-erriko kulturak ateak itxita daukoz, leendik ona, ate orreek pizka bat zabaldu ei dira baiña.

Zergaitik ez da galduko Markiña'n?

—Markiña'n euskerea gorantz doa. Ikastolan, bai egunez eta bai gabaz umemordo polita dabil.
—Ikastolari esker, mutiko ta neskato txikiak euskera jator-jator egiten dabe. Bestela arin galduko litzake dana. Emengo gazteak, batzuk bai, baiña geienak ez ditut bape kezkatsu ikusten; bost ardura dautse onei euskera ta olakoak!...
—Ez da galduko, guk markiñarrok ez dogulako galtzen utziko.
—Odolean daroagu ta zailla da barru-barruan sarturik daukagun gauza bat galtzea.
—Ez da galduko, geuk nai ez ba'dogu.
—Erriko gazteak, gaur-gaurkoak diranak beintzat, euskeraz egiten dabe. Antigualekoak edo idealik ez daben gazteak bakarrik jarraitzen dabe «euren erdel-gaizto orrekin»...
—Batzuk orretan aalegiñak jo arren, ez da galduko.
—Parra-parra eta edonon euskeraz egiten daben zaarrak eta guraso arduratsuak bizi diran bitartean, ez da galduko.

Euskalerrian? Ez da galduko, erantzun dabe ia danak ao-batez.

Zergaitik?

—Gure euskera aurrera ateraten aalegiñ andia ikusten dalako.
—Ikastolak dira gure itxaropenik andiena ta Euskalerriko alde guztietan ugarituaz doaz.
—Geroago ta indar geiago artuaz doa.
—Geuk nai ez ba'dogu ez da galduko.
—Beti egongo dira euskaldun zintzoak eta azkengo euskaldun zintzoa il arte biziko da euskera.
—Alperrik zigorrak eta espetxeratzeak. Guk gazteok azkenerarte eutsiko dautsagu gure izkuntza ta Erriari.

2.—Bardin ete dautzu galtzea naiz ez galtzea? Zer egiten dozu zuk?
—Ez galtzea oba, baiña ez dot ezer egiten.
—Ez daust bardin, baiña oraindiño ez naz ezer egiten asi. Nire lagunak ere ez dabe ezer egiten. Orain arte, konturatu bagarik egon garelako-edo.
—Nik ezin daiket gauza andirik egin, baiña bai gauza bat: euskera ta Euskalerria obeto ezaguru ta idazten eta irakurten ondo ikasi.
—Bardin ez daust. Ezta...! Itz egiten dot aal dodan guztietan eta obeto ikasten aalegindu.
—Lagunekin beti egiten dot euskeraz. Leen gure ikastetxean debekauta geunkan, baiña orain mojak ez daukue ezer esaten.
—Guk euskera egiten dogu beti, ingo ez dakienik an ba'dago, ikasi dagian eta dakigunok ez galtzeko.
—Gure izaera geien bat. euskeragaz maminduta dago ta ori galdu gero, gureak egin dau!
—Euskera galdu ez daiten edozerrako gagoz gertu.
—Euskeraren eriotza niretzat zoritxar andi-andi bat izango litzake. Toki guztietan euskaldun jatorra izatea aalegintzen eta nire lagunengan gogo bardiña sortu-azoten.
—Neure izkuntza da ta niretzat eta nire lagunentzat ez dago besterik.
—Emen jaio gara ta geure gauzak bonetan zaindu egin bear ditugu.

3.—Zeintzuk dira Markiña'n eta Euskalerrian euskeraz egiteko daukazuzan arrazoiak?
Ia danak ao-batez olantxe erantzun dabe: Geure-geurea ta gure asaben izkuntza dalako. Erdera barriz, ikasi bearrean aurkitu gara ta ikasi egin dogu, baiña ez da gure jatorrizko izkuntza.

4.—Zure gurasoak baizen ondo ba'dakie euskerea?
Erdiak baiño apur bat geiago dira, gurasoak eurak baiño obeto dakiela erantzun dabenak. Besteak, gurasoak baizen ondo ba-dakiela eurak eta azkenez bonaka batzuk, gurasoak baiño obeto bai, oraingo ikastaro onei esker. Euskerkezka geiago daukela gaurko gaztea ere, esan dabe. Banaka batzuk, osterago gaurko gaztediak batzarrak eta batzarrak, gero itz-jario ugaria gaur modan dagozan itzak esanaz, baiña ortik aurrera, leengo zaarrak geiago...

5.—Zeintzuk dira, zure ustez, euskera kulturabidean sartzeko, euskaldun askok euren izkuntzaren aurka daukezan aurre-iritziak (konplejoak)?
Aurre-iritzi oneek ba ete dauke gaur egunean indarrik?
—Euskerak ez daukola indarrik. Diru biderako gauza ez dan tresna bat dala. Iritzi onek, berez ez dau oiñarri sendorik, baiña bai diru-poltzeari begira bizi diranentzat.
—Euskeragaz ez goazela iñora. Erderaz itz egiten jakinez gero, geiagorik barik, gizon andiak dirala ta abar. Au, antigualeko iritzi oker bat da, baiña baserritarren artean-ta, nahi sakon dagoana; geiago oraindiño baserriko etxekoandren artean. Kaleko neska batzuk ere ba-dauke iritzi ori, erderaz egiñaz geitxoago dirakoan.

6.—Euskaldun jakitun askok, zergaitik jo dan erderara euren jakituri ori agertzeko?
—Diruagaitik, arrokeriagaitik eta bildurragaitik.
—Arrisku bako bizitza eroso ta nasaiten truke saldu dabe euren euskaduntasuna.
—Beti goikoekin, dirudunekin eta agintaritzarekin egon nai dabelako orrek gure arerioak dira.
—Euskera oraindiño ondo-ondo eldu bagarik dago ta orregaitik jo dan jakitunok erderara, euren jakituri or errezago agertuko ebelakoan. Euskera landu bako lurra dalako eurak landuteko kemenik ez...

7.—Markiña'n, gaur bizi diran jendien artean gutxi-gora-beera, zenbatek dakie euskeraz? Zenbatek egiten dabe geienetan? Zenbatek irakurri ta idatzi, eskutitzak (kartak) baiño ez ba'dira ere?
Emen bakoitzak zenbaki ezbardiño emoten ditu, baiña geienak zenbait oneen inguruan dabiltza:
Markiña'n jakin, euneko irurogeta amarrek-edo. Euskeraz itz egin euneko irurogeta amarrek. Irakurri, euneko ogei ta amarrek, gitxi baiño ez ba'da ere. Idatzi, askoz ere gutxiagok.
Askok, ez dautse itaun oneri erantzun usaiñik be ez dabela artzen zenbat izan daiteken-eta.

8.—Zure ustez, gure izkuntzak eta gure gazak indarra artu dagien, zer egin beharlitzake Euskalerrian eta Markiña'n?
—Danok alkartu geure onerako.
—Goian (agintzen) dagozanak ez dan egingo-ta, geuk egin aal dogun guztia.
—Ikastolak zabaldu Euskalerriko bater guztietan.
—Euskeraz geiago egin eta erri-erriekintza guztietan sartu euskaldun zintzoak diranak.
—Gure ikastola ta eskola guztietan euskaldunak, irakasle bezela artzen aalegindu.
—Liburu onak eta ugari atera, baita idizkariak ere ta orrela indarra emon.
—Zintzo jokatu bakoitzak aal dauan egiñaz.
—Diru-poltzeari begira dagozanen moduramonik egin barik, batu gure indarrak eta alkartasun-giroan jo ta egin aurrera.

BARAIAZARRA'TAR LU

Amo gaitz

Bere gaitasun guztien osotasunera
eldu bear dau aurrak:
Bere nortasunera.

Bizi dan eta bizi izango dan
inguruakin oitutzea bearrezkoa dau.

Bai, euren jokaera bete-betekoa
izango ba'da, umeak
aurtzaroan egokituten dira,
geroak dakarkin edozein egoerari
arpegi emoteko oitu bear dira.

Ez da baiña inguruagaz oitutzea bakarrik:
ziur izatea be bearrezkoa dabe.

Maitatua dala, zaintzen diarduela,
bere ardura dirala dakianean,
ziurtasun orri igarri dagi ta,
ortik datorkio lasaitasuna.

Ziurtasun orren ondorena,
mutil izatera aztean,
bere bete-bearrak osotzeko
almenak lortzea da.

Bere ingurura egokitua izango ba'da,
ezinbestekoa da gurasoen gaitzespean
sarriegi ez izatea.
Oker baiña beste oneik be:
euren aurrak dagien guztia
onartzen daben gurasoak.

Ez batarena ta ez besteana, ez dira egoki,
beste aldera oba: Orraztu bai,
baita poztu be bere onerako bideetan.


Aurtzaroan diran eta ikastaroan sartu
baiño lenago aurren
—lau-bost urtekoen—
neurketea, euren alegiñen
arauz egin bear da ta,
bakoitzak bere on-iritzia
indartzen lagundu.

AURRARI ARRERA ONA EMOTEKO GERTATU GADIZAN

Bere inguru orretan, etxekoena
ez-ezik auzokoen eragitea be
bearrezkoa dau ta, ortik,
bere gurasoetarik at, beste
adiñekoak be lagun dirala ikasi,
ta onen ondoan atsegintsu izan, ta
egoki aurkitu be, jakin.

Erakutsi egiozu aurrari bere buruz
asmatzen eta erabagiten, ta
bere jokaeren ondorenak ezagutzen,
biozkadak itxuraz agertzen eta
zaintzen.
Erabat: gizaseme osoa izatera
eldu dadin
LAGUNDU EGIOZU!





EMAKUME ZURRENTZAT

Zure diruak irabazpide obea izan daiten erantzungo dauan Diru-oiña osotuteko, benetan arduraz dabil Bilbao-Bankua.

Gerorako aurreratu gura dozun diru ori.

Aurreratze-agiri, libreta bat geiago barik, artu zeinke.

Baiña, baita, diru-garazlari andrea, errez, ziur eta benetan egin zeinteke.

Orretarako Mobiliaria diru-eraltze Oiñean, erkide lez, zeure dirua ipintea aski da.

Trebe-talde batek zuretzako irabazbide onenak aztertuko ditu eta, beste erkideenakaz batera, Bolsa-etxean etorpiderik onena dauken diru-gaietan zure dirua ipinteko arduratuko da.

Iru illabeterik bein, trebe-talde onek zure izenean egingo ditun artuemonen irabazi garbia artuko dozu.

Zure dirua geitu egingo da eta zuk, geituten ikustea baiño beste ardurarik ez dozu izango.

Gure edozein lantegitan bear dozuran barri zeatzak emongo dautzuez.

Diru-oin barri au, benetan, emakume zur eta argientzat da.

BANCO DE BILBAO BB

Onek andren eskubideak onatzen ditu.

Autorizado por el Banco de España n.º 8039.

IDAZTI BARRIAK

Egillea:
José Lasa Apalategi.

Izena:
Euskal erria ta ikastola.
Una polémica en torno a la ikastola.

Argitaratzaillea:
EDILI, Getari karrikan 21, DONOSTIA.

Irarlea:
Itxaropena. Bitor Pradera 2. Zarautz-1971.

EGILLEA

Jose LASA abadea dogu. Bere ikasteak Bergara'n eta Gazteiz'en egin zituan eta beti jakituri-zalea agertu jaku zabala eta adimenez sakona. 1951n. abade egin zan.

Gaur Donosti'ko katedralean kanoniku da eta ikastolen arduradun, eleizearen aldetik. Gotzaiñak egiña.

IZKUNTZEA

Liburu onetan agertzen jakun izkuntzea Gipuzkoa'ko euskalkia da. Euskera erritarra geienetan, noizean bein garbizalea. Agertzen dira, baita, berba tekniku batzuk bere: Pluralismo, laizismo ta olakoak. Ez ete zaitekean obeto berba orreik, oindiño erri zeak ezagutzen ez dabezan ezkero, euskeratzea? Onetan bide bat artu bearreko gagozala uste dot.

EGITUREA

Berreun orrialde ditu liburuak: lenengo 96'ak euskeraz eta enparauak erderaz. Izkuntza bietan gai bardiñak darabiltz, baiña azkenean, umeen eskubideak argitzeko, laterri-arteko arau batzuk dakarz: 1948n. abenduaren 10'ean onartu ziran giza-eskubideetatik, 1959n. zemendiaren 20'an onartu ziran ume-eskubidetatik.

Sarreran gaurko Euskalerriaren giroa zelakoa dan diñosku, batez be irakaskintzara begira sortu dan burrukea: ezezkorren eta baiezkorren eretxia. Eta burruka au eramankorra izango dalakoan dago. Bere ustez gure Erria «aurdun eta erditzeko zorian dago» Gero «pluralismoa ta «laizismoa» aztertzen dauz: «pluralismo» ori ona da, baiña naste barik izan bear dau. «Laizismoa» era bitan agertzen da: irakasle «telegubernatuak» ideaia eta lexiku prestatu baten bidez bizi dira. Positiboki gurasoen «baloreen» kontra jaiki dira. Emen zubia erditik puskatua dago».

Gero ikastoletan erlijiñoa zelan agertu bear dan aztertzen dau, «federaziñoaren» kondaira, konfesional ikastolen aurkako arrazoiak, ikastolen egoerea Euskalerrian.

Oarra:
Zenbaki onetan aztertzeko beste liburu bi daukaguz. Aztertza luzerik ezin egiñik, bakotxaren laburpen bat egiteko erabagia artu dot.

UMEN DEIA

«UMEEN DEIA» aldizkaria 1959'garren urtean, Aita Kaputxino FELIPE MURUETA'KOAK sortu zuan euskerari goraldi bat emateko». Ori dala ta, ume asko eta askok idazten ikasi eben. Onetan aldizkari orrek gaur KILI-KILI'k egiten dauan lana, bere erara, egiten eban.

Aldizkari onetan umeak eurak idazten eben. Ara zer diñotsen N. Tauer, Praga'ko izkuntzalari ospetsuak: «Ederki idazten dezue eta guk atsegin beterik irakurtzen ditugu. Zein ederki euskeraz idazten dakite aurrak!. esaten dugu kolkorako».

Aita Murueta il zan. «Orain argitaratzen degun idaztia berak Iruña'n, santuki il baiño bi illabete aurretik, eman zidan agindua betetze'ko. Emen aurkezten dizuet «UMEEN DEIA», gaiak lekuan lekuko ditula, ikaskizun zenbait oso jakingarriz aberastua, lagun eta leku izen arkibidez osotua. Ba-dira 800'dik gora, Euskalerriko bazter guztietatik, idazten duten idazlari txikiak, eta 1.500 baiño geiago bere «idazlantxo atsegingarriak».

Amaitzeko itauntxu bat: Idazlantxu oneitatik ez ete leike ezer atera euskera batuaren auzia argitzeko?

Liburu ederra da. 466 orri ditu.

BASERRIKO IRABAZBIDEAK

Donosti'ko aurrezki-kutxa Munizipalaren laguntzaz argitaratua. Andoni LEKUONA'k, Jaime ZUBIA'k, Jose PERURENA'k eta Migel GARMENDIA'k alkarrekin egindako lana.

Agurra ta itzaurrea egin ondoren, lenengo zatian Zabalegi-ren kondaira egiten dau, eskolaren barruko ta kanpoko bizitza kontuan arturik. Bigarren zatian Gipuzkoa'ko nekazari ta ganaduzaleen arazoa. Irugarren zatian Gipuzkoa'ko baserriaren ekonomi-alderdi batzuek. Gero «mapak eta estadistika kuadruak».

Baserriak gaur daukan giro larri onetan, liburu au oso irakurgarria dogu.

OLAZAR MARTIÑ'EK

EUSKAL HIT PARADE

Ene, Estitxu, ori don gora bearra! I, lakorik! Epail erdiko ta atzeneko neurketetan eze-eze, urte onetako lenengo iru-illabetekoa be berak irabazi dau; bera txapeldun «Bakarrik» bere abesti eder orregaz, ori ta, bere beste abesti bat be or dator indartsu: «Zeru Garbia», 6'gn illaren azkenengoan.

Gero, Osakarbi, Mocedades eta Libarona, zein baiño zein gogorrago, ta aize barriak ezartzen-edo Irigarai 5'gn. Ikusi daigun ba zelan datorren Ares jaunak bialdu dauskun Epailleko azkenean dabillen giroa, orrek emongo dausku noruntz doan gure entzuleen zaletasuna, udabarriko bizi-barritzean:

1.—**Bakarrik,** *Estitxu.*
2.—**Txori-Txikiak,** *Oskarbi.*
3.—**O Pello Pello,** *Mocedades.*
4.—**Alperrik Dijoaz,** *Libarona.*
5.—**Urak Dakarrena,** *Irigarai.*
6.—**Zeru Garbia,** *Estitxu.*

ta Urretxindorrak, Oskarbi (barriz), Naikari ta Unai bikotea ondoren.

EIRE'N

Dubliñ'eko abesti txapelketa. An ziran Malta, Monaco, Luxemburgo, euren izkuntza bako erri txiki jator orreik. Euzkerea, europarrik zarrena, etxean. Ala ta be, ikusi edo entzun gendunetik, gure abestiak eta abeslariak, Estitxu batek esate baterako, gauza onik egin al-izango eben. Orixe bai!

Ara gure iritxiak emen: geuk be geure neurketea egin gendun, ta au tamala! Ez gara ezer, itxuraz, doiñu atsegiñak igartzen; saspitan gatoz bat areikin, bat edo urrean, ta eurotatik bost makalenak biontzat. Orra ba, ba-dakigu txarra bereizten, ta zerbait da.

Guretzat, Olanda ta Portugal'ekoak izan ziran onenak = entzungarrienak. Onek ba-dau Andes'etako usain gozoa ta, ba-litzake, Eduardo Carrantza'ren olerkiak edo Inkatarren izkuntzan abesteko obea izatea.

Ta zeintzuk zabalduko ete-dira geien? Europa osoa artuta, gure ustez, Luxemburg'eko sagarrarena ta Suiza'koa, baita Noruega'koa be aapaldi asieretako sarri esaten dan itz gogor ori itzulpentan biguntzen ba'da. Gero, ba-dira denon artean lau, antxiñako ezagupera edo entzun-izana dakarrena, ta belarrietan errez sartzen diranak, Noruega'koa bera, Frantzi, G. Bretaiña ta Finland'ekoak.



Autarkiak emoterakoan, irunako taldeetan, gutxien, besteentzat noski, Belgica, Italia, ta Suecia'k emon ebezan: 225. Geien, Eire, Olanda ta Portugal'ek, euren buruen kalte: 276. Gero, laterri adizkideak autarki aundiak emoten eutseezan karri. Ortik ba, ta ba'da ez ba'dan, geure autoreari lotuko gara: Portugal, Olanda, Luxemburg.

ASTI

iRAETA'KO Bi GAZTE

R. FABO



-10-

TXERU

Ara gaztetxu —ta ez al gazte— ipuin-idazti barria

TXERU, izen orrekin a tuko doguz errezkadan, izan gogoan, euskeraz ida ten eta izketan jakiteko, da irakurtzea lakorik. irakurtzen dozuna ona, gabia, zeurea ta erreza ba'd igarri barik gora ta go joango zara, ta zeure izk tzan zerbait izan.

Ona emen ba TXERU, iku toletan eta sukalde-baster tan sartu dana, ta urren aleetan be euskerea zab tzen etorriko dana. Lenen jaunartze ta ikastolet ikasketa - erabagien garai gagoz. Ara TXERU'gana pidetzea zure aurrentzat su ederra.

Arpidetzerik gura ba'do —ta nok esango leustake e tzik— bialdu zure izen a zenak eta zuzenbidea: Ed c. Getaria 21, San Sebastian, **artzen dozunean ez zad umeegaz asarretu zeuk nengo irakurri gurarik.**

AIXOLA

LANGILLEAK

Langille-Alkargo Azkeak

CMT'ko XVII Batzar Nagusia berriro aipatuz, bere lendakariak, ongi etorria emandakoan, galderatxo au egin zien OIT eralkuntzakoeri: «OIT'ek orain arte egin duan lanagatik zor diogu eskerrak ematea. Zuengan itxaropen ere ba-dugu etorkizunerako. Baiñan galderatxo bat, lendakari jauna: *Gaurko munduaren egoeran OIT'egan itxaron ote genezake?*» eta izlariak jarraiki argitzen dio: «OIT'ek bearbearrezkoa du sindikalismo alkartu batean oiñarritzea. Ez bai-du OIT'ek egizko bizitzarik ludian izango, zabalera guzian ez ba'da sindikalismoaren askatasuna onartzen. Egiz, bizi geran ludi onetan eraso, espetxeratu, makildu eta il ere egiten dituzte lankideek alde jokatzeagatik. Onegatik, jauna, onartu bakarrik ez, zure agindu-itza nai genuke, OIT'ek berrogeitamar urte osatzen dituan urte onetan, alegin guztiak egingo dituzutela askatasun orren alde. Eta urtebetetze ori dala-ta eskatuko dezutela, ludi guztian barkapen aundi bat izan dedilla, sindikalismoaren ariketak diralata kondenatuak izan diranentzat, izan ditezela gaiñera beretzat eta bere etxekoentzat eskubide ta begirapen osoaz».

CMT eta OIT'a ongi etorri dira beti, orpoz-orpo ibilli oi dira langillearen alde. Morse jaunak, OIT'eko lendakariak, eskerrak eman ondoren gisa onetan mintzatu zitzaion: Konfiantza aundia dula bere eralguntzan, ta bi eralguntzen alkartasunean. Baiñan, bere itzetan, OIT jaio zanetik geroz munduan izan diran aldaketak berezitzen zizkion:

«1919'gnean. asi zan gizona egaz egiten benetan, ta gaur illargira ere joan da. 1919'garrenean sindikal ekintza bere aurtzaroan zegoan, ta gaur ludian 200 milloi bazkide ditu, onek adierazten ez ba'du ere sindikalismoak bere osotasuna iritxi duanik.

Langille ekintza zabaltzea OIT'en zabaltzeaz batera egin da, europar mugatik irten da mundukoa edo orokorra biurturik. OIT'a eta CMT'a orokortasun au billatzen gabiltz. «Berezitasunean, ludi osokoa izatea bai-da gure jokabidearen garrantzi aundienetako mail bat, ez bai-dugu sozial-zuzentasuna lortuko ludi guztiko arazoak ezagunak ez ba-zaizkigu».

Sindikato guztien bearra du OIT'ek arazoak zuzendu al izateko. Aurten, OIT'ek jokabide bat zabaltzen du, ludiko langille gazteeri lanerako bideak irikitzea.

Jokabide onetan, bateratua, gizonaren eskubideak aipatzen ditu, lanerako eskubide berdiñen alde jokaturik eta batzartzeko azkatasunaren aldeko eskubideak aizetu ta gaillendu arazi: «OIT'en buruausterik aundienetakoa batzartzeko azkatasun ori iristea da: sindikalismo azke baten aldeko burruka oraindio ez da buka».

«Onegatik, 1971'garren urtean OIT'ek izango duan Batzat Nagusian, gizonaren eskubideen barruan, alkartze azkatasunaren arazoa ere aztertuko du».

Baiñan, bere azken itzetan adierazi zuan bezela, OIT'ekin batera lotu bear dira ekiñean sindikatoak eta sindikalistak.

OLAZABAL'DAR XABIER

«EUSKAL ERRIA ETA IKASTOLA

Izenburu au daraman liburua argitaratua izan da. Bere egillea, ikastola gayetan ain ezaguna ta ekintza aundia darabilkin Jose Lasa Kanonigo Yauna da.

Garrantzi aundikoa dan liburu au irakurri ondoren, eta Euskalerri'ko ikastolaen egoera ta gorakada begi aurrean dugularik, bat-batean, itz auek irten zaizkit barrutik: «Ikastola (osorik artu-ta) Mirari bat da». Euskal kulturarentzat ain nekeza dan urtealdi ontan, Ikastola ain barreaturik eta sendotua arkitzea, zalantzik gabe, mirari aundi bat dala deritzait. Eta urtealdi au zailla dala-ta —ori aitzaki arturik— ezerezean geldirik daudenei ere, Ikastola mirari bat bezela iruditu bear zaye.

Lasa apaizaren liburua bi zatitan dator. Lenengoa, euskeraz, eta bigarrana, erderaz. Ez dira bata bestearen itzulpen, baiña —naiz eta askatasun osoan bi izkuntzak erabilliak izan— bi zatiak gai berdiña darabilte. Garrantzi aundi-aundiko gaya du mami, euskaldun zintzo askok beren biotza eskeñi ta egunero iraultzen ari bai dira gai orren alde. Ikastola, askorentzat, gure erriko gairik nagusiena da; beraz, Lasa apaizaren liburuak, Ikastola'ren ayeka guztiak zeazkiro azaltzen ditulako, arrera berezi ta bikaiña izango dulakoan nago.

Ona emen, «Euskal Erria eta Ikastola» *liburuak ikuitzen ditun zeetasunik nabarmenenak. Asieratik, siñismena dala ta eztala, gure artean sortu dan burruka azaltzen du, eta Lasa yauna —arrazoiz— baikor edo optimista agertzen zaigu. Urren,* «Ikastoletan erlijiorik ez» *diotenak ba-diralako, elizaren berezko jokaera bikainki aldezten du. Aurren eta irakasleen eskubideak bezela, gurasoenak aitatzen ditu. Eliz-ikastolak eta Federazioaren zitza. Irakasle ta gurasoen arteko eztabaida...*

Gai oyei danai begiratu bat ematea aski da, akaldun eta erdaldun diran irakurle asko erakarditula, esateko; zaletu ere egingo ditu, ta baita baiño geyago eztabaidarik bizienetan murgildu Baiña, azkenik, Ikastola'ri buruzko jakin-naya utziko dula ziur nago, Lasa yaunak gaya sakaezagutzen dularik, azalpen zeatz eta osoa eskeñi digu.

«Euskal Erria eta Ikastola»; *au da apaizak euskeraz idatzitako bere lenengo libur Euskera mardula ta nortasunez betea darabil. euskeraz idazten asi zanetik, ez da denbora luberagatik, izkuntza nola menderatzen dun ikusmerezimendu aundiaren jabe egin da liburu onen llea. Orrela, bada, Lasa idazlearen etorrera —alorrera, alegia— irabazi aundia izan da gurekuntzarentzat.*

Ikastola'ren miraria *aitatu nai dut berriro aitortu gaiñera, mirari ori ez dala alakok edo kok bakarrik lortutakoa, baizik indar askoren tean eskuratua, eta bereziki, andereiño, guralaguntzailleen artean egi biurtua. «Armoni» edkar-aditze bat izan da «mirari» orren egillea, aurrerantzean ere, iru indar oyen armoni edo aditzeari, naitanayez! eutsi bear zayo, armoni galtzen duten errietako ikastolak aize biurturik ditu ditezkelako aguro aski. Kontuz!*

OÑATIBIA'TAR Y

Los Rios'ko mixiñoa

Goethe jakintsu arek au iñoan bein:

«Mundu onetan zerbait egin gura dauanak, Jatorriz eta Aukeraz, gauz bi orien artura beardau».

Jatorriz gara mixiolari euskaldunok.

Euskalduna zan, Txina'n zear, aurrenik asmartu zan mixiolaria.

Euskaldun aita Zamurraga, Mexiko'ko lenengo goigotzaia. Onek eroan eban Amerikara, lenengo inprenta, eta bertakoen izkunzuz liburuak argitaratu. Beronek iralgi lenengo ikastetxe nagusia, ta jatorriz bertakoak zinanak, ikastera eroan.

Euskaldunak ziran orobat, aita Antxieta a Ezpeleta, Brasil'en eta inguruetako lurraldetan sartu ziran lenengo mixiolariak. Oriek so eben, lenengoz, angoen izkuntza, gramatika-legeak idatziz jarririk.

Euskalduna, Xabier, Oceania'ko ugarteen ear, Japon'eraiño iritxi zan lenengo mixiolaria.

Jatorri ederra dogu. Praile ta mojatxoena akarrik, ordea. Zeiñen polita, abade, moja, mar-emazte, neska ta mutil, euskaldun gunak bat egiñik, euskomixio bat eratu al baeneza!

Ona!

* * *

1947'ko urtean, artean amaitu barria zan mundu guziko azken gerrate ura. Ta nun-nai ageri ziran, ordun egindako ondamendi aundiak.

Eta asiak ziran «ONU'ko» gizon xuxparrak, jo ta ke, gauzak zuzentzen, auzimauziak konpontzen, ausi-abarrak antolatzen... Jokabide berean zan, Erroma'n geure Aita Santua, bere eliz-gizonez inguraturik.

Mixiolari asko il ziran gerrate artan. Beste asko, barriz, kartzeletan atxilloturik. Eta beste anbat eta geiago, euren mixioetatik, kanpora apurtikiak.

Eta Aita Santua arduraz eta kezkaz. Arduraz eta kezkaz, batez bere, bizirik gelditu ziran oriengatik: zenbat ete ziren, nun ete dilizan, eta zelan batu, antolatu, ta egokiera etorrenean, leku guzietara zabaldu eitekezan. Nai onek biziro eraginda. Eliz guziko gotzaiak deitu ebazan, banan-banan.

Ta an agertu zan, besteen batean, Guayaquil'eko gotzaia bere.

Aren izena, Heredia'tar Feliz. Garai'koa zan zan bertako lenengo gotzaia, ta Heredia, aukengoa. Biak euskaldun izenekoak; biak, hainan, Ecuador'eko semeak.

Ta alkar agurtu ondoren, asi zan gotzaia euren barriak emoten:

—Aita Santu, Guayaquil'eko eliz-barrutiak iru probintzi dauz: Guayas, Los Rios eta El Oro.

—Eta zenbat bizilagun?

—Milloi bat, or nunbait.

—Eta abadeak?

—Amabiko bi, bakarrik!

—Gogorra da ori, gero!

—Ori bakarrik ba'litz! Belgica aiñako dan lurralde arek, bide gitxi ta txarrak dauz oso. Ez dau, adibidez, iru probintzi oriek batu dakien biderik.

—Zer da bada, zeure iritxiz, Guayaquil'eko beharrik andiena?

Abadeena!

—Ba-dozuz Ecuador'bertan: Quito'n, Ibarra'n, Cuenca'n eta abar.

—Ez dira asko. Ez dabe, gaiñera itsasertzaldarri artara jatsi nai.

—Ta zer egin, bada?

—Mixiolariak bialdu!

—Eta gogoko izango ete dabe Guayaquildarrak «mixio» izen ori?

—Guayaquil'eko eliz-barrutia zabala danaz, zatitu egin leike. Ta orrela, eliz-barruti barri bat egin, Los Rios'ko lurraldekin. Eta oneri emon lekioke Mixio izen ori, mixiolariak ara bialdurik; atzeratu baita oso, gauz guztietan.

—Eta nortzuk bidali?:

—Landibe gogorra, gixajoentzat...; gazte, osasuntsu, kolko andiko ta lagun arteko elizgizon jainkotiar eta pixkorrak, bearko dira!

—Biar dator Gazteiz'ko gotzaia, ta areri eskatuko dautset.

—Xabier, Zumarraga ta Antxietaren kide diran euskaldunok eztira txarto etorriko. Naikoak dira zortzi, asterako.

—Orren gitxi?

—Obeto artuko dauz lurralde arek, gitxi ba'dira. Ta lenengoak bein laket diranean, datozela geiago, arian-arian, lurralde guzia ar dagien.

* * *

Urrengo egunean, Gazteiz'ko gotzaiaren txanda.

Carmelo Ballester zan bera. Eta aurreko egunaren antzeko, alkar-izketa izan zan, Aita Santu ta euren artean:

—Aita Santu, Gazteiz'ko eliz-barrutiak iru probintzi dauz: Araba, Bizkai eta Gipuzkoa

—Eta zenbat bizilagun?

Milloi bat, gitxi gora-bera.

—Guayaquil'ek bezela.

—Eta zenbateko lurraldea?

—Zazpi milla kilometrozkoa, gitxi gorabera.

—Guayaquil'en irurena. Eta zenbat abade?

—Milla bi.

—Guayaquil'ek, amabiko bi.

—Gogorra da, gero, Guayaquil orrena!

Gogorregia, bai! Lur ontako ondasunak, baita zerukoak, Jaunaren doaiak dira. Jaunak danentzako emoten dauskiguzan atsegin-sariak. Eta pekatu baltza da, baltza oso, bakotxak norberarentzat goide gura izatea!

—Bai, oneri nagokiola, abade euskaldun asko dodaz, erritik kanpora, bearrean.

—Ez da ori naikoa!

—Egia bai, geiago bere egin leike.

—Guayaquil'eko gotzaia egon zan atzo emen. Euskalerriak aiña bizilagun dauz, ta alako iru lurralde, eta ori dana zaintzeko... Zenbat abade dozuzala, esan dozu?

—Nik?... Milla bi...

—Eta gixagaxo arek... amabiko bi.

—Gogorra da ori!

—Gogorregia! Eta prest al zagoz zu, areri lagun etorteko?

—Bai!... Agindu, agindu!

—Zeure agindupeko milla bi abade oietakorik, zenbat artu ditzaket nik, mixioetarako?

—Gura dozuzan guztiak!

—Bai al dozu ortarako gogoz eta gerturik dagoenik?

—Bai, noski! Asmo ontan egon dira aspaldi bertako abade, ta egokiera onen zai.

—Bai ete? Eta olako zenbat dozuz?

—Mordoxka bat.

—Naiko dodaz zortzi, asteko.

—Orren gitxi?... Eta norako?

—Ecuador'eko Los Rios'etarako.

ESTONBA'TAR MAÑUEL

GIZONEN ARDUREA

Erlejiñoa dala-ta, berbetan asirik, bein, jaun argitsu batek barre egin eustan. Ene ez-jakintasunak pena emon eutson noski, ta berez-berez, irri-parre egin eban. Ta une artan ezer argitu bage geratu giñan.

Barruko kezkak irabiauta, jarraitzen eustan ene baitan. Erlejiñoa zer dan ez da edozelako galdera. Munduan ezer jakiturik dabenak, galdera ori, edo onartu edo baztertuteko edonok erabili izan dau.

Gora-bera au dala-ta, egi zur-zurrak erri zeiari, sarri, entzun izan dautsodaz. Jakitunengandik, geiago ikasten dala esan leikide batek baiño geiagok. Nire erantzuna, onantxe, doakioe. Gizon jakitunak gauza ederrak eta argitsuak agertu legikez, ta erri zeiak, urteen buruan, jakituri argia artu ba'dau, egi mardulak emon leikiguz.

Munduko aroak bardiñak ez dira izaten. Lurreko gizonen jokabideak be oso ezbardiñak, sarri, izaten dira. Bizitzako jazoerak puntu onetan argi asko emon dauskue.

Aldiak, bearrak, jazoerak gizonaren gizontasuna agertzen dabe. Goi-be onen inguruan ba, bakotxak bide bat artzen dau eta bide ori epaitua izan da.

Gizonak gizona salatu ebanean, nai bearra galerazo eutsanean, naiz iñoren izerdiz aberastu zanean, erri zeiak egikera orreek ez ebazan ontzat artu. Esateko eukana, berriala, esan eban.

«Ori al da erlejiñoa! Ainbeste kalte egin ondoren Eleizara doaz, Zertara?

Erri zeiaren pentsabidea ona da. Gizonaren lenengo ardurea iñori kalterik ez egitea izan bear dau. Berezko legea da izan bere ori. Iñori miñik ez emotea, iñori ez ostutea, iñor ez zapaltzea, ez bakarrean, ez sendian, ta ez errian.

Orrek eginda, zelan doaz Jainkoaren etxera? Zertara? Ori al da erlejiñoa?

Egizko erlejiñoa beste zerbait izan bear dau benetan. Gizonaren duintasuna ta bere eskubideak lotsaz artu bear dira. Ta gizon askoren artean erri bat osotzen dabe. Ta onen nortasuna be bere eskubide guztiekin onartua izan bear dau.

Erri baten eskakizuna bizitzako bear-izanetan oiñarritua ikusi dot: Gosea kendu, gaisoak arindu, presondegiko nekeak bigundu ta abar.

Orixe da kristiñau siñismenaren oiñarria be. Ta bizitzako bear izan onen eskubidea, ondo betetan alegintzen dana, ondoren, Jainkoari oparia eskeintzera joan leiteke.

Eskeintza au onartua izango da Jainkoaren aldetik. Ta erriaren aldetik be gizonaren alde doanaren oparia garbia ta zuzena izango da. Ain zuzen be, on egitea da bizitzaren oiñarria ta erlejiñoaren sustraia.

Orixe da erriak nai leuken egi-bidezko erlejiñoa.

SOLOZABAL'DAR PAULIN

ABADEAK LATINO-AMERIKA'RA

Gai au makala ta auskorra da, izan be Jaupari ta abadeak, eroan ete bear diran ala ez, asko idatzi ta berba egiten da. Atzerritar laguntza onetan jardukiten dago. Ez Amerika'ra ta atzerrira joandako jaupariak, geienez, jaupari-lan sakon eta ederra egin eztabelako, abade-bialtzeak Eleiza an bizi dan larri-estua (crisis) luzatuten ei-daulako baiño. Gero ta gitxiago bertako abade, jaupari dira Latino Amarikan eta, beste abade egitura ta jaupari bizieraz asmatu bear litzake. Orrez gaiñera, kanpoko laguntasuna —diruz eta giza-taldez— errelijio-kolonikintza antzeko bat dala diñoe.

Au dala-ta, gotzain bialgilleak eta atzerrietako jaupari laguntasun eratzaillek itaune au gogaldu ei-dabe: Abade jaupariak bialtzen jarraituko dogu? Gure laguntzakin kalte ala ondo egiten gagoz? Zer diño Latino Amerikak onetzaz? Latino Amerikako gotzain batzuk itaune berberau egin oi-dabe.

Celam'eri erantzuna egin yako. Baiña ezin egin eban asmakizun ta egitien norberaren adirazpena lez. Ezta emengo teologo ta idazlariak gogoratu ta esan dabena, adiraztea bakarrik elitzake naiko. Gotzaiñen gogamen ta naia adierazi ta agertu bear dau-eta.

Augaitik, alegindu da aolku eskatzen Latino Amerika'ko gotzain danei.

Latino Amerika'tar eliz-jerarkik atzerritako laguntzaren onura andia ezagutu, nabaritzen dau, ta orain arte egin dabenakaitik eskar zintzoak emoten dautse gotzain, goterki, abade, praile gustiei. Laguntza ori jarraitu ta ugaritu daiten euren guraria da.

Latino Amerika'tar eliz-jerarkik, era batera, ez dau uste kanpoko jauparilaguntzak Latino Amerika'ko eleiza bizi dan larri-estualdia luzatu dauanik, ezta bertako dei-jaupariren ardura bage egon, ezta ango asmakizunen egi-askatze galerazo, ezta egin eratu errelijio kolonikintza antzeko dauanik. Esan dogu «era batera», ba dagozelako gotzain-erantzun batzuk kanpoko laguntza danak; diruz eta giza-taldez, egi-askatzea atzeratuten dauala uste dabenak.

Bai, ezautzen dauz utsune batzuk, eta batzuetan latino amerika'tar gotzañaik laguntza orren erraztasunean larragi gelditu dirala: beste pastoral barriak, egitura obeak, abadezko gitxiagoak, elizazko geiagoak billatzeko ardura asko euki barik.

Latino Amerika'tar eliz-jerarkik euren asmakizunen barrengo askatzea egin bear dauela ba daki. Latino Amerika'tar eleizak ezin dau beti jarraitu beste eleizeen bear izanez. Bera, bere etorkizunaren egille izan bear da, ta eldu geroago izatera beste eleizen (adibidez, Aprika'ko Asia'ko) laguntza iturria. Asmatu bear izango dauz, gotzai, era ta egitura berarentzako bakan bereziak. Atzerrietako gizaldeak etorri bearko dabe laguntduteko eta au da oraingo beartasun bearbearrezkoa; bertako eleizaren indar biziak agertzeko ta latino amerika'ren egizko gotzai (pastoral) irazapen egitea. Kanpoko jauparien egoteak, anai maitasunez batuta bertako jaupari abadeakaz, elizberbizkun eder bikañak egin ditu. Ez bakarrik kanpoko egiturak sartzeko ta ipinteko al-egiñak egiten diranean, orduan bai beste eleizeen gogamen eta oar-ikasiakaz bertako eleizea aberastuten da. Eta indarrak, norberenak, agertzera ta biztutera lagunduten dauz.


Euskalerriko abade ta praile asko joan eta joaten dira Ameriketara. Euskaldun batzuk eztabe ondo ikusten egite ori, emen geure errietan lana ba dagola esanaz. Gogoratu beie Jaungoikoa ta bere Eleizagaitik egindakoak, onetsi ta bedeinkatzen dauala geure Euskalerria.

LETONA

ITZ - EUNDUAK

(VII)

Etxebarria'tar Juan Angel



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Norberak gura-ta. B: Bedarki.—D: Bertokoa. Lapurdi'ko erria.—E: Aldi-aroa. Auzi-iritzia (a. a.)—G: Zenbaki. Izotz.—I: Aditzondotarako atzizkia. Zabal ibilli (bir.)—J: Itsas-piztia. Zara (ika). K: Gogoan erabiltea a. a.)—L: Emakumeizena (a. a.)

GOITIK BERA.—1: Jesarleku.—2: Artazi.—3: Konsonante izena (S). Soiñugailua.—4: Euskal-abizena. Orru.—5: Su-miia. Joare-otsa.—6: Zenbaki. Arpegi atala.—7: Makur-itxurakoa. Zoaz (ika). Garitzako txoria (a. a.)—9: Yoranez.

VI'ren agerpenak:

Zearretara = Lur.—Ama.—arregU.—Al.—La.—Legor. Arno.—Adar. Ziur.—retA. Atano.—Ez. NK.—Aritu.—Ago.—Lor.

Goitik bera = Lar.—Ede.—Agate.—aloraza.—Lar. R. raL.—Ume. Igo.—raG. A. Tor. ulaztnU.—Ariak.—Nun.—Oro.

ASMAKETEA

(V)

Garatea'tar M. Luisa

NORTZUK DABE ERRUA?

IV'ren agerpena: **Aberri-miña.**

UDABERRIA

Udaberria erori zaigu
aizek zeraman negutik,
eguzkiaren galda beroak
euri dira lur gaidetik;
txori gaixoak esnatu dira
osto berrien tartetik
eta pozkidaz kantatzen dute
bere biotz barrenetik.

Itxaron kezkak aiendu ziran
laiño beltzen egoetan,
zeramazkiten edur malutak
ez dute otz lurraldeetan.
Lore politak agurka dagoz
erne-berri mordosketan
besarkaturik gizaki danok
itxaropen besoetan.

Mendizalea igaroko da
kimu-berriz dan basoan,
txantxangorria aurrez doala
xaltoka bere pausoan.
Ta gaillurrera igo dalarik
euskalerri du altzoan
bere ederra, eman gaiztoaz,
argiro ikus dezadan.

Gezurra dabil gure artean
«Batasunan» izenean
lilluratzeko izen polita
sorturik gure artean.
Izen politak «Banakeria»
ekartzen digu aizean,
gure erria urrundu leike
leninisten egalpean.

Nere buruai egiten diot
onela anitz galdera:
gure erria ondatutzeko
ikur al dute euskera?
Gure asabek utzi ziguten
duintasunez ez al gera?
Gure etsaien atzaparretan
geok jausten ari gera...

Noiz etorriko euskalerriai
itxaron udaberria?
noiz etorriko gure artera
bearrik gauden zoria?
Noiz itzaliko barruan dugun
arrokeri min-bizia?
Orretarako otoi dagiot
JAUNA'ri bere grazia.

UXOLA

EUSKAL-ERRITIK BEGIRA

Argelia'n diran matsondoetatik erdiak kentzera doaz. Lurrik onenetan jarri ei-eutsezan, bedarki obeen kaltegarri; iñork gitxik edaten ei dau an, ta iñoren erostearen pean beti. Orra ba, petroleoan ez-eze, ba-dakie nundik jokatu etxekoen oberako.

* * *

Zarautz'ko erria erdi-bituko ei-dabe, bide zabal orregaz. Zeiñen onerako da bidezabalak egitea, bertokoentzat ala...

* * *

Paraguay'ko Goi-gotzaiñak, S. Montonero agintaria eta F. Britez ertzain burua zigortu dauz ex-comunion bidez. Zergaitik? Abade bi, Uberfil eta Rodriguez jaunak eta gotzain bat Andres Rubio, eleiz gizon oneri egin dautsen gogorkeriegaitik.

* * *

Aizeak bota ta ezkongai ziran Francisco Jabier Ibazeta ta Maria Paz Magaña, grua baten jauskeran il dira. GB. Ba-dabil or zear «accidente» guztiak ebagi bear dirala esan bearra, zergaitik goi-goitik asi ez?

* * *

Oar txiki-txiki bat agertu da izaparringietan, ia iñork ez irakurtzeko aiñakoa. Bizkai'ko Diputaziñoak diño bertan Orrillaren 15'gn arte dozula epea zeure zerga an ordaintzeko, gero, berandu joan ezkero, % ainbesteko gorakadea.

* * *

Belbil aundi edo tarrantak gelditu dira. Eroan-ekarrietan ez dala bear aiña diru jasoten. Ba-da or be, esne-arazoan lez, zer zuzendu ta zer aztertu.

* * *

Eun osagille inguru zigortu ditue Oviedo'n, eskeintzen ebezan osakiñegaitik zeozer jasotzen ebelako. Oitura lotsagarri ori ez da angoa bakarrik. Erriak ba-lekiz...

* * *

Gizaburuaga'n gudaritzako sasoian mutil bakarra: Urrutibeaskoa'tarra berau. Inguruetako gaztedi geiena Ipar-amerika ta Australia'ra joan zan. Gaur, Jaunari eskerrak gutxitu da odol-uste ori.

* * *

Carlo Stellner'ek diñoanez Belgrado'n, Stalin'ek Alleluyeva bere emaztea erail eban. Gero, Levin osagillea be bai, onek eriotza aren agiria izenpetu nai izan ez ebalako.

* * *

Suezia'n ule-luzedunak gudaritzan buru-sarea erabilli bear. Oraingoz gazteak naiago izan dabe ulea moztu. Bildur baiña ea gudaritzan ez-eze, kalean be sarea modan jartzen dan.

* * *


Biafra, Kamerun, Bengala, erri txikien ez-bearrak ta odol ixuritzeak. Era guztietako erri «aundiak», angoak eta emengoak, batari ta besteari izkilluak «emoten», urre pizkaten trukez...

* * *

Lengoak naiko ez eta Italia'n Borghese orrek be bere lagunak erriak aukeratutako agintarien aurka jarri dauz. Ezkerretik eta eskumatik asmo onik iñoiz be ez damokraziak.

* * *

Txang eta Mao etsaiak, bat datoz zerbaiten. Formosa'ko erriaren azkatasun eskarien aurka. 14 urte dira amar milla formosatar erail ebezenetik, ara baiña indartsu barriz TIM izeneko alkarte erritarra.



Bengala'ko erri gizajoaren abertzaletasuna be «burgesa» ete?

* * *

Jorrail onen 21'gnean Grecia'n nagusi diranen urteurrena ta jai aundiak? bat, urrutikuskiñez emotea Londres'en egun berean Inglaterra'k eta eurak jokatuko daben ostikoketea. Gero bildur, an diran grezitar errizaleak, zentzuz ta indarkeri barik Wimbledon'en erakusketa jator bat egitea asmatu dabe, euren errietan ikusi dagien. Asmo on ori ondatzeko, betiko aldrebezak, zentzuz barik zalapartak egitera deika, ta danori ondatu.

* * *

Frantzi'n ezkontzatik at jaiotako umeak eskubide bardiñak izango ei dabez, ta aita ez ezkonduak ordaindu bere bizitzarakoak eta eziketea. Aita bakarra aukeratu ezin ba'da, sortu aldi inguruan ibilli ziranak, alkartuta, aitakotzako bear orreik bete bearko ditue. Maitakeri zaleak, lenengo zatiakin pozik, bigarren orregaz ez baiña, orrek bildurtuko ei-dauz batzu-batzuk maite azkatuan asterakoan.

* * *

Gaillegarrak zintzo. Barakaldo'n lan dagienak, euren izkuntzan idatzitako idaztien erakusketa bat antolatu dabe. Pozik ikusten dogu Galizi'ko izkuntzaren berbizkundea.

* * *

Stravinsky Igor, ereslari gorenengoa il da bere erritik urrin. Errusi'tik iges egin eban, ta atserrian, benetan maite izan ba'dabe be, il. Zenbat alako zoritxarrez, eta gizonaren gaiztakeriz.

* * *

S. S. t. egazkin itzal ori ez ei-da egingo —ala bai?— Oraingoz ez, ta batzuen eretziz astokeria ta atzerakeria. Besteak, aize garbiagoa ta dirutza alperrik ondatze eza. Langille alkarteak estu, alde batetik berrogetamar milla langille lan barik, bestetik orretan emon bear zan dirua etxegintza, uri obetze, lanbide barri ta zartzaro lagutzarako izango dala. Zein bide aukeratu?

* * *

Alemania'nasi ta europarrak zorretako diru eskatzea merkatu egin dabe. Dolar larregi ei-etorran % geiagoren billa, ta orrein truk emengo dirua saldu, ta aren osasuna makala danetik gerorako galtzeak. Urrea, beste bost urte barru gora-gora joango ei-da, ta ori daukanak berez irabazi. Izango da zerbait tartean eta gero beste aldera dana, egualdi igarleak ibiltzen diran antzera.

* * *

Dubcek errizalea itxuraz, zugaitz-ebaketara bialdu dabe. Progresismoaren izenean ete? Orma baten aurrean barik or ilgo da berez gixajoa!

* * *

W. Calley, bizitza osorako epaia artu ondoren, kalera. Goikoen jokoa ba'litz, ba-dakigu noraiñok eltzen diran. Tamala baiña erria zati bitan agertzea, batzuk alde ta besteak aurka. Zuk eta nik ba-ete dakigu nun dan errua?—BEGI-BI

Errenderi

Agur!

Gipuzkoa'ko erri ontatik «Agur» aldizkariaren zuzendari ta irakurle guztiei agur t'erdi! Gure asmoa, uzten ba-digute beintzat, tarteka erriko berriak ematea litzake, ea danon artean berari bizi ta zabalkunde ematen doigun.

Ikastola berriak

Gure erri ontan, bullarka andirik gabe, lan bikaiña egin da ikastola-arloan. Pio Etxeberria zanaren sendiak utzitako gelatxo artan, dozenatxo bat ikaslerekin, sortu zan ikastola, 380 ikasle ditun Ikastola andia izatera iritxi zaigu.

Ez da txantxea; norbaitek egin du lan ortara irixteko. Lan sendo, bikain eta iraunkorra, gaurko giroan egin diteken aberri-lanik ederrenetakoa.

Joan dan Epaila'ren 26'ean izan zan Ikastola berrien bedeinkatzea, Gotzai jaunaren izenean, On Roberto Agirre erretore jauna badeinkatzaille izanik. Aldundi ta Erri-agintariak ere an izan ziran. Aldundi'ko Lendakari dan Arenaza jauna ta Errenderi'ko alkate berri dugun Erramon Muxika jauna mintza ziran —alkatea euskeraz— eta Ikastola'ri euren laguntza osoa eskeiñi zioten. Poztekoa da agintzen dauden gizonak orrela mintzatzea, aspaldidanik beste era batera oiturik bai gaude.

Zorionak orain arte lan onen buru izan dan Bitor Idiazabal lagun zarrari ta era berean batzordeko bere lagunei. Errenderi'ko kondairan zuen izenak or geldituko dira.

Bertsolari-jaia

Antton Valverde zanaren oroiz ta omenez bere jaioterriak eratutako jaialdirik bikaiñenetakoa, ezpairik gabe, Gipuzkoa'ko berstolari gazteen txapelketa zan. Abendu'ko gertakizunak zirala-ta, jai ori atzeratu bearra gerta zan eta eratzalle-batzordeak Lore-ilaren 16'ean egitea erabaki du.

Gure ustez, lendik izenak eman zituzten bertsolariak —ogeitik gora— lengo asmotan egongo dira noski ta ori orrela dalarik, jaialdi eder bat izango dugulakoan gaude.

Igande goiz ortan, maiatza'ren 16'ean, On-Bide Zinema. bertso-zaleez gaiñezka ikusiko dugula ziur gaude. Sarbide-txartelak On-Bide'n bertan salgai daude.

AÑARBE

Irun

«Gure astea» amaitu zaigu. «Gure astea» deitu oi diogu emen, euskalzaleen artean, Garizuma aldiko euskal itzaldiak izaten ditugun asteari. Aspaldiko oitura da emen noski: Jose Donearen astean euskerazko itzaldiak izatea, nik neuk beiñepeiñ eta berdin nere guraso eta aiton-amonak, alaxe ezagutu izan degu.

Andre Mari Eleiza bete-betea zalarik, gaur, Jose Donearen egunez, bukaera eman diogu gure aste oni. Aurtengo itzaldiak Aita Zubiaga jesuitak egin dizkigu leen ere amaikatxo alditan egin izan zituan berak. Oso pozik entzuna izandu da. Izan ere gaur-gaurko gayak euskera jator, garbi eta txukunean jantzirik eman dizkigu. Ni an izan naiz illunabarretako itzaldi guzietan. Arratsaldekoetan eziñ izan det, zoritxarrez. Aguro joaten zala ordu osoa diote danak ao batez. Ez da batere arritzeko, gaur, gaur bezela, izan ere, Aita Zubiaga izango degu noski izlaririk onentxoenetakoa gure euskera maitean. Ni beintzat lerdea neriola, aspertu gabe egona nazute.

* * *

Gure aizkide on Austiñ Martiarena eta bere emazte zintzo Mari Jexux Iparragirre'k aurtxo mardul bat izan berri dute eta euskal izen «Aitor» ipiñi zioten kristautzekoan. Zorionak bioi. Eta ez naikotu izenaz, izen utsezko eta mingaiu luzedun euskaldun geyegi dago bazterretan da. Dana izenean geratzen zaye!

* * *

Gure Bidasoa'ko arrantzaleak asiak ditugu. Dagoneko, Joantxo Legarreta'k ogeiren bat amorrai atara ditu. Bat kilokua atera ere. Sunbilla aldean dirudianez. Aurrera Joantxo!

Izokia asko bakandu dala ematen du. Banaka batzuek besterik ez bait ditute eskuratu. Eta oyek, doi-doi.

Beobi'ko zubi berria zabaldu digute. Ba-zan garaya. Emendik aurrera zai egon bearrik ez. Leengo zai egote gogaikarri ta amorragarri aiek joan ziran.

I'TAR Y.

Zeanuri

AGUR aldizkari onetara zeozertxo bialtzen gogoratzean, nundik asiko ibilli naiz, baiña maite diranentzat beti dago zer esan, ez da orrela?

Gorbea'ra

Aurtengo neguan, Upo'ko artzaiñak esan eban lez, edurra, leia ta otza izan doguz. Igarri daukazu batez bere esne-saltzailleak, eurenak pasau dabez.

Baiña mendizaleak ez dira gelditu, Gorbei'ari igoten, makiña bat lagun ikusi izan doguz. Epailla'ren 14'gn Altamiñape'ko txadonatxoan Mezu bat izan zan Zaratamo'ko mendizale gazte batzu gogo alde, G. B. Bere automobillean joyala, bideo il zan-eta. Egun orretan, Gorbei ta inguruko mendiak, edurrez estalduta egon arren, gazte asko bertaratu zan, ezilkorra dan maitasunagaz otza kendu duta.

Zain

Garizuma aldian, or-emengo erri askotan bazkaldiak egiten izan da Olazar abade jauna, baita gure errian opor. Ez ete-daukagu ba gaurkotasunean patxadaztu bearrik? Urregoan izango al-da...

GORBEATARRA

Arratia

Udabarriko lorea

AGUR onen irakurle sutsua dan Zumazo'tar Pedro Mari, aita egin da. Bere emazte Isabeltxo'k lenengo alabea izan dau udabarriko lenen-egunean, eta ugazatzean, batez tutzean, Iratze izena jarri dautsee.

Ez aztu, Pedro-Mari, zuk edan zenduan iturruko ura umeari emotea, euskaldun ona eta osoak bere aurrerantzean izan daitezan Zorion, guztioi!

Gaztedia

Antzina bateko egunetan. arratiarren artean beintzat, ez zan izaten zirikatze beaiz emengoek angoai arrika ta lepobero egiteik Makil-indarrez, politika, izkuntza-arazoz erririk erdiak dadar-ikaraz eta odolduta tiradiran une garratz ontan, gure gazteak, iñoiz korik maiteen, Dima'ko Oba'n alkartu ziran Zornotza'ko ta Larrabetzu'ko gaztediakin.

Bertako alabea izan eta gazte zalarik zan neskatillearentzat, gaztediak eratutako eleizkizuna izan zan, eta mezearen buruan ranak bere, apaiz gazteak biak.

Soiñu joten, Arteaga'ko Bernaola neska mardula; kitarra ta bakar-abestiak Artza'ko Patxi'ren esku egozan. Txistulari be ba-ziran tarteko, ta erri gazte kementsuren abes-txanda izaten zanean, eleizatxoan teillatua gorantz joiala irudian.

Bakoitzak eroan eban bazkaria guztetzako izan zan, eta guztiena zana bakoitzarentzat. Alkar ezagutu, barren-barruko kezkaalkarri azaldu ta arratsaldea bakerik osoena emon ondoren, beste bat arte agurtu ziran maitasunean.

Alperrik jardungo dabe auzune arrantzarrazki gitxiren mingain luzeegiak lupuan baltzen, obatar jatorren gogo-biotzetan bai ez da aguro aztuko an izan zan gaztetasun ta bakearen ederra.

Emakume madarikatua

Urrutizkiñak tirrinka iñarduan. Entzungaillua jarri belarrian ta «kaixoka» asi berik ez, bitartean izan zan andrazko txanrrak: «estan habaldo en vasco» esan, eta deak ebagi.

Jazoera onen ondorengo nire otoitzen turik izan ba'dau... zeruetan dago ori ezkero.

LANDAJUELA'TAR

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tendería, 15 eta 16

Boutique

Cerra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

ERRIETAKO BARRIAK

Basauri

Ume adimen-laburrekoen arazoa badoa erriaren giza-barnan sartuaz. Errriko ainbat bazkunek eta Udala'k be alde artuaz egin-bear ontan eta, ondore onak emonaz, doa.

Igaro zan Epail'eko 28'gn. ospatu zan erri ontako «Cinema Social» aretoan, ume adimen-laburdunen aldez jai bat, Sendi-buru Alkarteak eralduta, baiña, eralguntzan utsune andia ikusten zan.

Ez da barregarri egin bear oraingoan egin dan lez, nai-ta ez ba zan izan be antolatzaleen ezta bertan alde artu ebenen borondatez, ezetariko onuragarri barik alde artuten ba'eben, ta ori zan egin zana, zergaitik barregarria zan esango dogu: Jai ortarako zabaldu ziran egitarauetan iragarrita egon zan, Bilbo'ko Erruki Etxe Deuna'ko Eresbatzak erriko txaideak zear kalexirak erestuko ebezala, baiña, Eresbatz ori, ez genduan ikusi, ez zalako etorri. Bardin jazo zan iragarrita egoan gitarra jotzale ospetsu batekin, ez zan aurkeztu, gaixorik egoala esan eben. Uts onei batu leuskiogu egin eben zori-gaitzeko aurkezpena, itxuzia, askartasun gitxikoa.

Jaiaren asiera, Galdakano'ko «Andra-Mari» euzko dantza talde ospetsuak emon leutson «Amaya»'ko ezpatadantza kementsuaz, dantzaketa guztian guztiz txalotuak izanik ta beraz goralpen ikeragarria lortu eben eurak, nai-ta antzeztokia aldi artan bear ez ziran ereskin da tramankuluz beterik izan, jai-areto «sala de fiestas» baten antzera: euskal jaia ospatuteko baiño beste edozer egiteko egokiago zala antzeztokia.

Barregarri itxi nai ba'dabe gure errijakintzea ondoen egin leikeena taldeak ez aurkeztutea izango litzake.



Urren, auspo-jotzale neskatillatxoak, euren irakasle Yanguas'tar Mari Asun lagun ebela, egin eben erestaldi bikaiña. Onen ondoren, Itxarone, Kepa ta Yasone neska-mutiltxo zoliak euskera txukunean abestu eben, benetan ederto egin be, euren gitarrak lagun ebezala. Jarraian, erestalde barri jotzale batek jotaldi bat egin eban, geienori naiko buruko miña eginaz. Eta orrein urrengo Basauri'ko «Folk Alegre Amanecer» erestaldeak jotaldi batzuk egin ebezan (Elkarte ortako geienak «Ogeta-bat» taldekoak dira, mutil alaiak eurak). Eta azkenez, «Firestone Abesbatza» alkarteak abestu eban guztiz ederto; oso txalotuak izan ziran.

Jai ontan aurkeztuak izan ziran erriko talde «Las Cuadrillas'eko» ordezkariak, ba, eurok be lenago ogei milla laurlekoko emon eben, ume koitadu orren alde, lengo Atletik'tar ostikolarien aurka jokatutako ostikoketa bitartez lortutako zan txindia. Bai-ta aurkeztuak izan ziran Eskudero, Kepa Eiza ta Arraintza bazkuneko lendakaria, txindi emote bi egiña zalako bazkun orren izenean, guztira eun milla (100.000) tik gorakoa, eurok umetxu orren aldez egindako leiaketan bitartez eta bazkun orren eraultza oneri eskerrak lortuak.

Amaiera, neskatotxu auspo-jotzalleak euren tramankulu ederrekin AGUR JAUNAK abesti txukuna erestuaz emon yakon. Uste dogu urrengo beste jai baten garaitza obeagoa izango dogula. Orretara izango al-da.

KOLDO

Idiazabal

Oporraldi luze baten ondoren, erri ontako gaztedia berriro asi da lanean. Oraindio ba-dago euskal-zaletasuna. Bizirik jarraitzen du. Kirolak onak dira soiñarentzat, baiñan oraindiok obeagoa arimakirola. Eta euskal-arimaren-kirola indartzeko antzerkia bezelakorik ez.

Onelaxe pentsatu du OARGI inguruan biltzen dan gaztediak. Antxiñako jardunak indar berritu, eta ekin. Gaztedi onek, «Axari» deritzan euskal antzerki taldearekin, «Uxola» tolosar idazlearen antzerki bat jarri du ekiñean. «Itzulera» du izen. Gaur-gaurko gaia darabil. Hippye batek sendi batera dakarzkian ondorenak.

Aurtengo gure erri-jaietan, bi egunetan, eman zuten. Gero, geldi-unerik gabe, Zaldibi'n, Zegama'n, Araotz'en, Bergara'n, Segura'n, Oñati'n ere agertu dira antzerki onekin.

Eskeari baiezkoa emanik, laister Beasain'era, Arrasate'ra, Tolosa'ra, Urnieta'ra eta abarretara ere joateko dira. Azken erri ontako antzezlariekin, «Egi-billa» taldearekin ordain-truke, auek gure errian A. M. Labayen'en «Agar'en Seme» emango dute-ta.

Argatio gazteok pozik gabiltz, eta ez gelditzeko asmoz. «Itzulera» ren ondorioz antzerki besteran batzuk eskeintzeko asmoak dituzte «Axari» koak.

Sua itali gabe, beti aurrera!

ATXU-MENDI

Usansolo

Ikastolak

Otsaillean esan neban lez, emen nago barriro ikastolatako arloan jokatu naian. Tamalez, ez dogu aurrerapide aundirik izan lan orretan. Ez dogu erantzunik izan, an egindako eskarientzat.

Errudun, gauza bi nere eritxian. Ez dala AGUR irakurten, edo ikastolako goraberak ez gaituezela arduratzen. Lenengoa ba'da, zer esan geinke? Ez dogula min aundirik, nai ta euskerea galdu, ez dira erbestekoak etorriko, euskerazko aldizkariak erosten eta. Idazlantxo au irakurten dogunok alegindu gaitezan, Usansolo'ko euskaldun geienak danak ez badira bere, AGUR irakurri dagien.

Bigarrena, bada, barriz, gaiztoagoa. Zelan ezer egin, euskal zaletasunik ez ba'dago gure auzunetan? Batzar bat izan genduan igaro dan illean, nundik edo zelan oratu leitekean arazo oneri, jakin gurean. Garbi, gai bi ikusi genduzan.

Amabi edo amairu milla lauerleko illean bear doguzala, ta leku egoki bat ikastola ezartzeko.

Lenengo gaiantzat ez genduan beste biderik ikusten, al dan adiskide geien bazkide egitea baiño. Au lortuten ba'dogu beste gaia erreza izango dala uste dot.

Alkartu gaitezan buruera au betetzeko. Alan ez ba'da, agur gure itxaropen guztiari. Usansolo'ko auzuneak erdaldunak izango dira urte gitxi barruan.

Odol emoillen lagundia

Berrogei ta amarretik gora izan dira lagundi onetatik, odola emondakoak, azkenengo batzarrean. Nai ta oste ederra izan, ugaritu gaitezan zeregin onetan, urkoentzat odola emotea, maitasun lana dan ezkero.

Gogo-jardunak

Nire gogoan dagoala beintzat, aurten izan doguz lenengoz, euskal gogo jardunak «ejercicios» Usansolo'n.

D. Josu Garay mintzalari. Arrietako euskera samur ta garbiagaz, gure biotzak bete ebanzan Krisua bide ikasketakaz.

Jakiña, betikoa, emakume mordoa, baiña —emen esaten dogun lez— prakadun gitxi.

Zer daukagu, euskaldun gizonok, Eleizaren aurka?

ATXUTEGI'TAR JULENE

Zaldibar

«Agur» irakurten dozuenak izan leiteke ezagutzea Zaldibar'ko erria. Beste batzuk ez.

Erri txiki bat da beste askon antzera baiña azkenengo urteetan asko azi da. Bilbao-Beobia'ko autopistea Zaldibar'en be sartzen da.

Jakingo dozue zelan etxe batzuk bota dituezan, ba emen, Zaldibar'en, Azkorreko etxea bota eben igez Iraillaren ogeta batean. An bizi ziran nere amaren gurasoak, neure aitita ta amama. Azkorre baserri-etxe polit bat zan eta ontxe ayuntamentua egiten dabizen bestekalderantz egoan. Ayuntamento barri bat egiten dabiz Zaldibar'en. Patxi Berriozabal Elorrio'ko kontratisteak bere langilleakaz dabil jasoten. Uste dogu oso polita geldituko dala Kanpoko aldetik, ala dirudi.

Batzuk diñoe barruan Korreoz-Telefonos-Anbulatorio eta beste gauza batzuk ipiñiko dituezala.

* * *

Guk Kili-Kili'tarrok dei bat egiten dogu. Konturatu gara Bibliotekarik ez dagola errian. Erri osoarentzat kultura bide bat izango litzakeala. Eri eskatzen dautsagu Ayuntamentuari, eta euskaldunak gareanez, euskal kulturari begira geien bat, Euskerazko liburuak gura doguz, irakurteko egarriz gagoz-ta.

Otzaillaren 23'an Zaldibar'ko parrokian bederatzietako mezea. Bustindui eta Idoeta'tar don Felix'en arimearen alde izan zan.

Zaldibar'en abade egon zan 1944'tik-1968'arte ta ementxe il zan. Zaldibar'ko parrokoa izan za.

Berriatu'n jaioa eta 1909'go. bagillaren 5'an abade egin zan, GB.

Agur'en irakurleentzat:

ELEXPE'TAR MILA'K

Galdakano

Jolaseta

Aurreko AGUR baten esaten genduan, laster asiko zirala, aspaldi erriko gazte ta ain gazte ez diran askoren guraria izan dan, Jolaseta barria egiten, eta alanixe izan da, asi barriak dira, ta orduan esanda lez, Andra Mari'ren antziñako txadon erromanikoaren ipar aldean. Lenengo baiña, gure argazkian ikusten dan eleiza ospetsu orren inguruak antolatu bear ziran, bertarako bideak eta zelaia egokiak etorten diran berebil ta beste tramankuluentzat lekuak eukiteko. Orreik ez dabez oraindik amaitu, baiña ori ta guzti be, asi dira gogotsu, batetik eta bestetik lur-kentzen eta bear diran egikizunak, obrak egiten.

Ori dala bide, ba-dabil or igidurea ta ibilli bearko laster ikusi gura ba'doguz amaituta, bertan izan bear diran igeritegi, pelota-toki, ostikoketalanda ta abar. Au da; Kiroltoki edo Jolaseta oso bat.

Zugatza

Ez dago esan bearrik, Jolaseta orren inguruak be ondo antolatuta, apainduta geratuko dirala, ta alan izan bear dau orretariko egintza baten duin be ba-da-ta. Baiña, apainketa ortan ondo egongo litzake kontuan eukiten, eleiza ospetsu ortara eldu



baiño irurogei bat neurkin lenago, orain ogei ta amabost urte, erriko Udala'k antziñako «Guzur-Aretxa» egon zan lekuan sartu eban Gernika'ko Zugatza'ren landara ederra be apainduta ipintea; aldi ontan aurkitzen dan antzera, edo txarrago itxi barik.

Lenago be zerbait idatziak gara «Guzur-Aretxa» ta bera egondako lekuan aurkitzen dan Gernika'ko ezkurretik urtendako landara onetzaz, baiña barriz be ez da txarra izango zerbait geiago esatea, ta jakin bear dabenai jakin arazotea. Jainkoaren laguntzaz, orretara egingo dogu.

Gaixorik

Aspaldian makal xamar aurkitzen da, osatebakuntza gogor baten ondoren, Zorriketa'tar Bittor euskaltzale zintzoa, eta orretara izanik, zelan ez! AGUR'en betiko irakurlea. Kementsu, betiko eran ba Bittor, jarraitu, ea laster zeure sutizkillua lepoan dozula, mendiak zear, urren asiko dan eiza aldian ikusten zaitugun.

Urte orniduketa

Bizi garanok urtero orniduten doguz geure urteak eta orrek ez dauko ezetariko garrantzirik, baiña, bai orraitiño larogeitik gorakoak, banakak izaten diralako ortik gora zenbatu leikiezenak, argitasun eta zentzun guztiaz, eta orregaitik dakargu gure idazlantxu ontan gaurko au:

Ia igaro dogun Jorrail onen bostgarrenean bere larogei ta zortzi urteak ospatu ebazan, apaltasunik aundienaz, baiña argi ta bizkor, Basterra'tar Bingene'k, De Nicolas'tar Purto'ren alargun zintzo ta euskaltzale jatorrak, Usansolo'n bere auzune maitean.

Bere larogei ta zortzi urteak, arintasunik andienaz darabiltz Bingene'k eta euskeltzale ona dan lez, astero Zeruko Argia ta illero gure AGUR au atsegiñez irakurtzen daki. Gure zorionik beroenak Bingene ta, beste urte askotan, orretara jarraituko al-dozu.

BASA-JAUN

Eibar

Santakurutz

Matxari gaiñeko jaixak, domekan ala astelenian? Dana-dala, iru abadedun meza nausixa goixian, bertsolarixak gero, ta goiko tabernetatik ekarritako bazkaria eguardixan. Arratsaldian txistu ta auspo-soiñuen jai-aldixa. Bateron batek, Ernani'tik ekarritako sardau upel aundi bat, nai dabenantzako duan.

Kale-izenak

Ordua zuan da, erabagixak be artu jitxuezak kalieri euzkerazko izenak ipintteko, ta beti, lengo lekuena bera. Or izango jittuaguzak barriz be, Kale-barri, Arane, Trokola'neko zubixa, Plaza-barri ta Santzaburu edo Bolin'go kaliak. Ori-tta parrokixa barri bati San Juan izena ipiñiko ei-jeutsek, Eibar'ko jai nausixak be euren santuaren elixia izan daixen. Batzuk baiña, obe litzakela Deba'n edo aukeratzia, an izaten ei-dittuk ba eibartar erdixak jaixetan. Dendetako agirixeri be bai, euzkeraz, etxaukagu baiña «h» naikorik.

Biarra

Laster geittuko ei-dok, pieza batzuk exkas ibiltzeraiño. Lenago be eiñ ei-juen orrenbeste Ermua'n be, ta torlojo bat gora-bera, or juango dittuk, argizaixa ipiñitta, atzaskalakin buru-ebagixa eiñ, da kitxo.

Umien jaia

Gogor dabillanaz orretara zaletuak. Aundixak eingo ei-jitxonez; ixillik dabiñaz baiña oindiok. Gero, euzkel-gauzak boikoteatzen alegintzen dittunanak, ezezka. Gaur goixian, plazan, patata-barri tta idarren artean, etxekoandra batzuk auxe esan jeustane: «Ez ari estutu, guk, gure umiak jantziko jitxuaguz eta Karmenekora bialdu mezetara. Gero, Arragueta'ko pazialekuan, bazkarittarako ogibittarteko ta guzti, egun guztiko jaixa. Bealdekuak, txistularixak eta soiñujotzailliak ekarriko jittuezak; goialdekuak, urgozuak eta opiltxuak umientzat.

Eiabar'ko ama-gazte, egon zain, ta eure umetxuen jantzixak gertau egiñaz, atzeneko arrapatakarik izan ez deixanan.

Gibelak zurittu

Eibar'ko jataillien alkartasunak artu juen erabakixa ez dok txantxetakua: udako illietan txikiteorako kokakolak artzia, pezetan txikitua.

Bide-zabala

Ta dana ondo izan daixan, autopistiari be euskerazko izena jarriko ei-jeutsek Eibar'ko zatixan; «Goitiberia», ta sariak-eta ipiñi Urkuzu'ko itturri, Arane, Pipar-kale, Konsejo-zar ta zezen-bide gaiñetik ziar, andik abixada utsian igesik jatokezan zoruak, beko kalietaraiño jausi ez daittian.

...Bialdu aurretik, nere andragaixari irakurri jeutsat au. Zer deritxon? nik. Amesetan bizi aix i! berak.

ZELETATARRAK

BIOTZAREN AGOZ

Gure uri aundi, baita txikietatik; gure ibar, ta gure mendietatik be, gure izakera itzi ta zabarraren bidez, euskereak iges dagi, nortasunik ezaren axolabagakeri, zentzunik ezaren txepelkeri ustelez; euskaldun izate arroputsaren lotsakizunerako. Ta, iges-aldi negargarri ori gelditzeko, zer egin dogu orañarte, guztiok musturka ta asarre? Zer dagigu euskera-zaletasunik ezaren gaitz ustel, orri arpegi emoteko? Betiko antzera azaldu geure semeai euskera erakutsi barik eta, etxean eta kanpoan erdera nagusiturik? Orrela ez dogu bein be, osakai ta bidegiro onik izango! Egia da bai, kontzientzi apur bat artzen ari dala gure erria; egia, gaur egun, euskeraz askotaz geiago irakurri ta idazten dala; egia, ikastolak ugaritzen ta nekearen nekez aurrera doazela eta, bai abesti eta, abar, zerbaiten poza, itxaropen osasungarria nabaitzen dogula gure erri zaurituaren sustrai, biotzondo zindoetan... Baiña, oraindik lanerako, zenbat gara, zenbat euskeltzale, zenbat benetako langille?... Bat, bi, iru... Ain gutxi! Ta, gure aundikiak, zer egiten dabe, nora begira bizi dira? Eta, gure Udalak, gure Diru-Etxeak, Lantoki aundiaz eta abar, zer egiten dabe zer, Erriaren Alde? Itaun Tristeak! Aldamenera begiratuaz, beingoan konturatu gara, euskeraren landertasun, beraldi ikaragarriaz. Azken arnasatan arkitzen danik esaten ez naiz ausartzen, baña, bai estu ta larri... Bitartean, euskaldunok, nasai bizi gara, «Ondo jan eta obeto edan» ta, gero, «barre ta irrintziz», bizi... Bizitzea al'da ori? Au, nortasunik ezaren, erriaren egoera tristea! Alperkeri bizitza epel ta negargarri ontan... Euskera berbiztu, kalera eruateko zer dagigu? Idazle ta euskeltzale arteko eztabaida ta esamesakaz; batez be, lagun urkoa iraindu ta, al'bada, uskeri bategaitik, gitxietsi ta, zaurituz...

Euskalkide ta aberkide danari, eskua emon bearrean, ukatuz... Nun bizi gara, nun? Noiztik eta zelan sortu da gure artean, iñoiz ezagutu ez dan nabarmenkeri ezezkor ori? Euskera aldezko maitasun sutsuak eraginda ala, atzerri kutsuz erne diran alderdikeriak sortu ete dabe? Ala norberekeri ta bekaizkeria besterik ez ete? Gogora datorkit Benavente españar antzertilari ospetsuak idatzi ebana: «Yo, yo, yo, yo... cantaba la rana» («Ni, ni, ni, ni... igela kantari»). Erri lotu ta lo-zorrotuaren magalean gitxi batzuk izanik... or-emen, sakabanatuak arkitzen gara euskaltzaleok. Tamala bai, benetan, gure alkarganako anaitasun, maitasunik eza! Beti, iraiñez ari dira aldizkari batzuek... orañarte gure gizon aundienak diranen izenak gitxietsiz... Ezer gitxi egin ei eben, Orixek, Azkuek, Aranak, Kanpionek, Altubek ta abar ta abar, esanez, euskera geiago ibilli bear ebela ta, beti orren antzera, besteen lanak gitxietsi ta, norberan burua goralduz... Ai, bide ontatik oker gabiltz, batabestea zio barik, ostikoperatu naiean. Gero neurri berdiñez epaituak izango gara. Areik egindako lana erderaz idatzia izan zala; euskeraz geiago, dana egin bear ebela... Ai, mutillak! Areik egindako lana, eskasa zala... ta, guk dagiguna, zer? Ez ete dauko akatzik, murgillik? Esamesari itzi ta lanari ekin bear dautsagu, gogoz, sendo, bulartsu, bakoitzak al daben eran, ta, alkar obeto ezagutu, ta maitatuz. Bai orixe da gure bidea gure erria benetan maite ba'dogu. Saririk ez eskupekorik itxaro ez eben ta, ez daben euskeltzale idazleak, ta, euskera ta errimiñak eraginda, ordurik onenak emon ebezanak ez eben olako destaña, esker txarrik merezi; baizik gogoz txalotu baliotsuak ta, ainbeste ez garanenak be borondate guztiz ta biotz onez egindakoak diran ezkero, aintzat artu ta eskertu biar doguz. Ori izango litzake gaurkoz, gure giza-legea.

Biotzak bear doguz, biotz aberats, langilleak. Euskereak ezin dau denporarik galdu eztabaidetan ta gitxiago oraindik alderdikerietan. Idazleok eredu izan bear dogu ta al dogun guztian batabesteari lagundu.

Baña, egin... Zer dagigu? Zelan erakusten dogu geure euskelduntasun ori? Erderaz idatzi, ta, geienetan erderaz itzegiñez? Benetan maite ba'dogu gure erria, gure euskera; egunero ibilli bear dogu ta alik geien, bai etxean eta bai kanpoan; baita urrutizkiñez eta erara datorkiguzan zenbait izbide, tramankulu guztietatik; euskeraz al'dogun guztian... Ez lotsa, ez bildurrik izan; nun-nai tinko burua iaso ta benetako euskaldunari dagokionez, beti, euskeraz berba egin. Orrela euskaldun guztiok iokatu ezkero, euskera laster igongo litzake gorengo mallatara! Baña, gure axolabakeri, zabarkeriz, gure izkuntza, berbeta maitagarria or dakusgu bildurrak ta, nagikeriak baztertua; ogibideko toki guztietatik oinperatua; or dakusgu bai, il zorizko egoera itoan...

Ona zer dirauskun gure abandotar Irakasle ta suspertzaille aundiaren olerki, abestitxu batek: «Ama ilgo zara —motzen azpian? Ilgo zara zeu— betiko? Itxaron Ama —Jarijon biot— neure odol au lenago!»

Ta, maitasunak bultzatuta bere ondasun, bere iakite, bera zan osoa, bizia eskeñi ta emon eutson bere, gure Erriari! Ta, urteak igaroz doaz ta, era bardin edo okerragoan arkitzen gara euskaldunok... Itxaropenik ez daigun galdu eta, ekin lanari, gogoz, kemenez, zintzotasunez... Ekin, batabesteari eskua emon ta lagunduz biotzik onenez!


Muniategi'tar Sabin

KILI-KILI'REN JAIA

Egia esateko ez naiz, Eibar'en esaten eben lez, «musikerua», ez jotzaillea ezta orretan ikasia be. Orra ba, ez dau emen diñodanak eres-teknikarekin ezer; belarritik artu ta biotzak diñostana bakar-bakarrik.

Saspiretan asi bear ebana, ordu-erdi berandutxoago asi zan, ta ez diñot au eratzailleen gaiztespen lez, beste aldera, orretan oitu bakoak izanda, asierako abiadea artu arte izaten diran zoratubearrak gaindu ondoren, bete-betean eroan eben danori, ta baimenak be azken ordurarte, egun bereko eguatdirarte ezin izan ebezan eskuratu.

Ori zala-ta, zabalkunde txikia egin zan; ala ta be, naiko ondo bete zan aretoa, ta KILI-KILI pozik izango dalakoan gagoz. Iseko Lourdes eta osaba Iñaki, ta oneitan beste guztiak gogoan daroaguz, an ebillazan ara ta ona, ori guk ikusia; jakin be jakin dogu zelako lan eta ibillerak egin bear izan ebezan aurreko egunetan. KILI-KILI'k iñoiz paparreko domiñarik eskeintzen ba'dau, zuek irabazi dozuez urrezkoak be.



Ta asi gaitean abeslari ta dantzarien barri emoten. Lenengo-lenengo, utsean, KILI-KILI'ri laguntzearren ezebezaren truk jardun eben, duan; zeiñek-zeiñek baiño obeto ta... maitekiro. Orrein biotz ona goraltzeko ez gara gu iñor. Auxe bai esan daikegu: orretan amarretik amar lortu ebala bakoitzak, danak txapeldun.

Abesti saillean, danetarikoak izan genduzan, alai, itun ta barregarri. Gazte kementsu, datorrenaren itxaropen *Elaiak*, Zarraga...; abots barri sakon eta samurrak Zabalondo'k eta Zarraga berak, aren umezurtzarena ukutugarria izan jakun, euskereari eskeñia be bai. Argoitia neba-arrebak kitarrekin bertsolarienak abestu ebezan, entzuleen barruari eragin eta alaitasunez bete eben aretoa. Yon Libarona gero, plaza-gizon egiña, bere abesti ezagunen barri AGUR'en irakurri izan dogu, ta or entzutean bere jarraitzailleen giroa ulertu

Ara baña, abesketa orrek, bere ebaketak izan ebazan, dantza-aldi politak; lenengoak geure-geureak, azkena baiña atsegin-betez ikusi genduna. *Txindor-talde* orrek ba-daki dantza-bide barriak jorratzen. Zorgin-dantza antzeko a ederto asmatua izan da, areik bai «neskak», olako erraldoirik mutil-lapurretarako! Ta, ez dauz dantza orrek euskal-dantzak barregarritzen, ez dautsazu orrelako kutsurik artuko, bestera, gure lengo gazte ixil, zur eta lotsakor arein barruko jostakeria dantzatutzen dau.

Areatza'ko Patxo urrengo, abesti barri ta sokonegaz; ta bare-aldi bat lez, udabarriko basoan, lats-ondoko lili artean, uriko zalapartadatik igasik entzuten diran doiñu bigunez etorri jakuzan *Gau-Txoriak*. Benetan atsegiñez entzun genduzan.

Zorion urrengo, Zorion abarketa ta guzti, «Limosnatxu bat» eta «Zu ez zara polita» gogoz txalotuak, irugarrena «Bizi beti euzkerea», egunari egokionez, onena.

Estitxu ta Oskarbi azkenean, batak eta besteek aurreri ta onein ikastola ta andereiñoeri abestu eutsen; ume-abots ta guzti arek; txalotxu, txalotxu ta... xiist'aka oneik, umetu giñan danok, ta aspertu ezin entzuten. Andik urten eta gerora be, orduetara, KILI-KILI bera txalopintxaloka ebillen arrapatzen eban edozeiñekin.

Ta amaitzeko San Anton'go Abesbatza, kendu txapela mutillok orrein aurrean eta, Agur, jaunak, agur t'erdi!

UBITZA

AGIRRETARRAI AGUR BIOTZETIKOAK (II)

Etxeko-andreak ezin politoago gertu eban jatokia gurétzat. Alboko mai txikitxu baten edariakbe ikusten ziran. Bakio'ko txakolin entzute aundikoa. Erriberi'ko ardao zuria eta bada-ezpadan letz-edo biar ba emakumeentzako sagardoa be bai.

Etxeko jaunak neu lenen sartzea nai izan eban eta neure oiña barruan jarri nebanean bertan, ango bazter batetik abots gozo batek abestu eban: AGUR JAUNAK.

Abeslaria Agirre'tar Iziartxo zan. Abestia amaitu zanean danak barruan gengozan eta bakotxa zutik bere tokian. Berialaxe euren begietan ikusi neban zer nai eben; neuri begira egozan. Jakiña! Jaupari nintzan eta Jaunaren onespena eskatzen eben an alkartuta egozan guztiak. Nik neure bitartekotasuna ezin ukatu ta biotz zintzoz esan neban: «Jaunak onetsi begiz gure buruak eta mai onetan artuko doguzan janariak eta janari orrek sukaldean gertu dabezanak. Bai eta janari orrek maira ekarriko dauskuezan eskuak be». Au entzunda guztion buruak etxeko andreagana jo eben eta biotzetik urtendako txalo bat emon eutsoen. Txalo ori ama ta alaba Iziartxo'rentzat izan zan, Iziartxo amari laguntzen ebillelako.

Ez dot geyagorik esango bazkal gozo aretzaz. Abestu genduzan, euskotarren artean oitura dan lez, erri-abesti batzuk.

Gorputzak ase ba'ziran, gure gogoak ondiño gose ta egarri egozan ta bazkalaurrez erabilli gebazan euskel-gayai jarraya emotera juan gintzan.

Iziartxo'k maitxo baten jarri euskuzan akeita ta esnea ta txolak be geuk, bakotxak bere gozamenaren arauz, artu gegikezan. Berialaxe gure adimen-oiturantza asi zan. Ainbeste urtetan aberritik at bixi izan zaran ezkero zer ete-deritxazu gure euskera maite onetzaz? itandu eustan Agirre jaunak bere semeak adi-adi egozala.

—Egiz erantzun biar dautsut, erantzun neutsan, aurrerakuntza aundia aurkitu dotala. Ez nekian ainbeste ikastola emen eta an zabalduta geukazanik, batez be Naparra-aldean. Ez nekian ainbeste etxe argitaldari, ainbeste aldizkingi, batez be ez nekian Goi-Irakastola edo Unibersidadetan ainbeste gaztek euskera ikastea nai dabenik. Gure azkenengo guda-aldian be gogor ekin genduan batzuk euskel-irakastolak biar-biarrezkoak zirala-ta; gaur ez bakarrik emengoak, bai eta an Madrid'en agertzen diran aldizkingi batzutan be gure irakaste bedegarren alde idazten dabe. Eta zer etederitxazu gure euskel- batasun zorionekotzaz? itandu eustan Agirre jaunak.

—Ba... aurrera goazala, nik erantzun. Gure artean dabiltzan eztabaida ta izkanbillatxoak agiri-agirian jartzen dabe bizi garala. Bai-gabiltz. Bizi gara. Aurrera, ba.

—Zein bidez baiña?

—Zabalik daukagun bidez eta bide-alboetan dagozan loratxoak eskuratuz eta ezagutu erazoz. Esate baterako. Aurrera noala emen alboan ikusten dodaz askarregille diran izkitxoak. Nire eskumaldean bizkayerazko **-z,** eskerraldean gipuzkoerazko **-zki** eta **-it** ikusten dodaz. Ez jaurti ez bata ez bestea. Or dagoz biok, euskerazkoak dira biok. Batek **au** nai dauala, besteak **a** maita dauala; euskerazko loratxoak dira. Euskeraren aberastasuna agertzen dabe. Ez moztu ez kendu euskereari berak bere sustrayan daukazan aberastasunak. Erabilli euskera osoa, euskera aberatsa. Ikasi ikastoletan euskererean aberastasunak. Erabilli euskeraz nai izkelgi au dala, naiz bestea dala. Batez be euskereak bere adizkerean daukazan aberastasunak: orrek ondo be ondo zainduak izan bear. Euskerazko adizkera edo *conjugazioak* daukazan aberastasunak ez uste beste iñungo izkerak daukazanik. Esate baterako: Iberkera ta beste izkera Semitarrak bai dauke ar eta emeentzat adizkera bedegarra. Aditzean bertan erakusten dabe egikuna egiten dauna gizonezko ala emakumezko ete-dan; baiña guk, euskotarrok, orrez gain beste aberastasun bat dogu eta au da alkarizketa esaten doguna. Eta orrelako aberastasuna zaindu ta landu egin bear dogu. Berrogei urte baiño geyago dira, gai onetzaz eztabaidatxoa izan nebala Pablo Zamarripa jaunagaz 1929'gko. Jaungoiko Zale'n ikusi legikezun letz; baiña ori baiño antxiñagotik be ITANO-alkarrizketa ori gogor aldezten geban. Orregaitik alde batetik pozik be pozik irakurri dot lengo egun baten IKAREN ALDEZ argitaldu dana; baiña beste alde batetik min pizka bat emon eustan. Lenengoz nire ustez ez da egia *ba zekiat* irakurtzean berialaxe dakiguna neska dela mintzatzen dena. Berialaxe dakiguna beste au da: Gizonezko*ari*, arr*ari* itz egiten *diogula;* Ez da egia *ikusi diñat* esateak berealaxe adierazten digula mutilla dala neskari mintzaten diona: Berealaxe dakiguna beste au da: Emakumez*koari*, em*eari* itz egiten diogula. Ni gaur esan nai dan letz, *ados* nago edo gogaikide naz orrekin «*ika*» ori emakumeen erriz galtzen ari dala toki askotan diñoanean eta tamalgarri izango litzakela gure Ikastoletan andereiñoak garrantzi geyago ez emoten «*ika*» orri; baiña ezin naz gogaikide izan «Elizak nolabait ikaren kontrako giro bat sortu dula, ika deabruari gorrotoz erabiltzean. Nun eta noiz? Elizak Jaungoikoari beti ika egiten dio lateraz egiten dauanean (Tu solus Dominus, Tu solus altissimus); Elizak England'an oiñarte beti ika egin dautso Jaungoikoan. Ointxe asi dira englandarrak Jaungoikuan zuka egiten, beren artean (Kuakerotarrak izan ezik) edonori ZUKA egiten dautseelako. You erabilli nai dabe orain, Thou'ren ordez. Elizak Parantzeraz egiten daunean ika egiten dautso. Jaungoikoari: Souviens —*toi* Seigneur... Nous Te supllions. Baiña euskeraz ez ete-dautso Elizak «ika» egiten Jaungoikoari? Ez dakit gaurko elizgizonak zelan euskeraldu dabezan Elizak Goiko Jaunaki darabiltzan bide batzuk; baiña bai-dakit Elizak ontzat artu dauzala beste askoren artean Arriandiaga'tar Imanol Abeak euskeraldutako GOIZPARKIAIK eta idazti orretan Lutxdeunaren Goizparkian (XI, 2'gnean) aurkidirakurgu: Aita, eure ixena donetsi bixa, eure ala bel Egunian eguniango ogija emoskeguk... Eta Arriandaga izendatu dotan ezkero, Sabindarrak bidera datorz.

Iñor izan ba'da, Sabin'en jarraitzale, or Arriandiaga beraxe izan zan, eta bere Goizparkiaik irakurtzen ba'doguz, «ika» edo itanoz ta zutanoz josita dagola ikusiko dogu Arriandiaga'ren jarrayan EUSKELTZALE BAZKUNA be Sabindarr zintzoa izan di beti ta EUSKEREA-aldizkaria irakurri baiño ez daukagu, orrek be «ika» edo itano-zaleak zirala jakiteko.

Zabala-Arana'tar Joseba (G. B.) be Sabindarra zan eta itano-zale. Bere AMAIKA GABETAKO IPUIÑAK irakurri baiño ez daukagu orretarako be.

—Bai; gomutetan naz, esan eban etxerajaun Agirre'k, zelan an 1918'gn. urtean-edozuk argitaldu zenduan EL VERBO EUSKERICO'n berorixe zaintzen zendula.

—Oroipen ona daukazu, Iñaki, erantzun neutsan... Baiña gaurko ekitaldi au askoren luzetu da, bai, eta nik etxera atzera juan beharra dot. Urrengo baten ekingo dautsagu berriz gai oneri ta beste euskel-gai batzui bi

Ibilli gabiltzan guztiok aurrera. Ibilli ta ibilli eta alik edertoen jantzita. Gure euskalrearen aberastasunak diran aundiak dirala-ta. Ez, ez dagigun edo ez dezagun ezer moztu ez ezer txikitu, ez ezer makaldu. Sendotu indartu, biribildu, osotu ta edertu. Orixe egiñik aurrera beti.

—Aurrera! erantzun eben abots batez nire inguruan egozan Agirre'tarrak. Guztiok bat batera zutik jarri giñan eta bijotz batez abestu

Bizi ezta
Ludi gustijan
Ene Ama
Baxen ederra, baiña ez
Ain gaxua...

URRUTIA'TAR GOTZON M. B.

Ama! Ekatzu ogia ta Baserri-Chobil!

Eskatu BASERRI

CHOBIL

Txokolaterik gozoena.

Esneagaz egindakoa.

Neska lirain eta mutil gordin-bizkorrak jaten dakiena.

AGVR

II URTEA
13 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - ORRILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

LOREILLEAN ARANTZAK?

Orrillean izadia lorez jasten da. Orregaitik il oneri loreilla be esaten dautsagu. Il au abesti ederrez eta jai alaiz apaintzen dogu.

Baiña, aspaldiko urteetan batez be, orrillak lenengo agunean arantza zorrotzak erakusten dauskuz. Gure egunetan dogu zan arazoetatik sakonenetariko bat nabarmen agertzen jaku: gizarte-arazoa.

Gora-bera latz au gizonaren barru-barrutik sortzen da. Gizonaren nortasunak berak daukazan eskubideen arazoa da, ludiko ondasunak bear dan eran ez banatzeak ateraten dau.

* * *

Gizonen arteko artu-emonak gure asaben artean oso errezak ziran.

Arraintzailleak beretzako bear eban arraiñak eta geiago ekarten zituan, nekazariak lurretik beretzat eta besteentzat ateraten eban. Eta, jakiña, lurretik arraintzailleak eta itxasotik nekazariak, alkarren artean banatuaz, jaten eben. Bitzuai laguntzeko liñagiñak jantziak egiten ebazan eta, baita, itxasoko ta lurreko janarietan erkide izaten zan.

Norberarentzat eta besteentzat lan egiten eban, ba, gizonak. Ortik alkar maitasuna sortzen zan.

Baiña gero dirua agertu zan. Artu-emonak illagoak biurtu ziran. Norberekeria ugaritu zan. Arrezkero iñok ez dau besteentzako lanik egiten, dirua irabaztearren baiño: nekazariak esnea ta abereak diruagaitik saltzen ditu, arraintzailleak bere arraiñak diruagaitik dakarz, jantzilantegiak diruagaitik lan egiten dabe, dana dirua ta dirua...

* * *

Diru zalekeri onek «kapitalismoa», domu-bidea, ekarri dausku.

Gizon diru-zaleak eta dirudunak makiña aundiak egin dabez, lanerako jentetza aundiak ekarri dabez. Eta beargiñai jateko ta biziteko bear-bear dabena emon eta beste batzuen izardiz biziteko era baragarriak urten dabe.

Gitxiren eskuetan ondasunik geienak batu dira eta jentetza aundiak gosez edo txirotasunean bizi dira.

Ez ete zituan, Jaunak, munduko ondasunak guztientzako bardin egin? Non dago bardintasun ori? Nork onartu ain nabarmen agiri dan ezbardintasun au?

* * *

Dirudunak indartsuak ziran. Baiña txiroak asko izan. Ortik sortu zan gaurko burruka ikaragarria. Beargiñak, au ondo egiña, alkartzeko bideak artu dabez eta alkargoetan, sindikatoetan, alkartu dira. Eta onelan euren eskubideak erakusten dabez. Orretarako, batez be orrillaren bata izentatu dabe. Eta ludi guztian egun au euren eguna da. Kristiñau diranak Jose Deuna, langille lez, zaindari artu dabe.

Burruka onetan, dirudunen aldetik, alkargoak, sindikatoak eurak, okertu egin dira eta sarritan dirudunen eskuetan egoten dira. Baiña langilleen eskubide berezia da euren alkargoak euren eskuetan eukitea, eskubide ori zaindu egin bear dabe, aldeztu bearrean dagoz. Ori da orrillaren asieran agertu jakun burruka onen zati on bat.

Bakotxari berea. Ori da zuzentasunaren eskabidea.

Langilleai euren eskubideak, langilleai euren lanaren frututik zor jakena, langilleai euren alkargo bereziak, langilleai euren agintaritzan erkide izateko almen osoa. Asko diralako, gizonak diralako, euren lanetik eta izarditik guztiak bizi diralako.

* * *

Eta, azkenez, gure artean langille izatea eta euskaldun izatea batera doazan ezkero, ez daiguzan alderdi oneik banandu. Gure lana geure erriarentzat onugarri da eta gure izardia, lenengo ta bein, geure Erriarri indarra emoteko izango da. Gure burrukea geure artean ondasunak bear dan lez banantzeko izango da. Euskaldun batek ez begi beste euskaldun bat zapaldu, gure artean iñor ez begi iñoren lepotik bizi. Bakotzak bere lekuan eta al dauan neurrian lan egin daigun eta ondasunak bear dan lez banandu daiguzan.

AGVR

BASERRITARRAK? BAI ALA EZ?

Zergaitik?

Dei bat

Gizonen artean gutariko bakotxak bere lekua dauka. Batzuetan geuk aukeratzen dogu, baiña au Jaungoikoak berak emon dauskun zeregin bat dala be ezin geinke ukatu.

Leku au artu eta dei oneri erantzun bat emoten diardugun ezkero, bear dan lez erantzun bear dogu, beste edozein taldek gizartean erantzun bear dauan lez.

Orretarako, geure baserrirako aurrerapide bat billatu bear dogu.

* * *

Dei onurakorra

Lan guztiak, eta orregaitik diratsegu lanak, gizonai onurakorrak jakez: oiñerakoak egitea, jantziak egitea, ogia egitea...

Baiña, lan guztietan ederrena ta onurakorrena, baserritarrarena da. Berak lurretik janaria ta edaria ateraten ditu, berak jantziak egiteko bear diran gaiak ateraten ditu.

Eta jana eta jantzia gizon guztientzat bearrenetarikoak dira, lenengo maillakoak dira. Bai aberatsentzat, baita txiroentzat be.

* * *

Dei gatxa

Esan bearrik ez dago. Baserritarren zeregiña oso latza da.

Urietako aurrerapideak eta eratasunak beragana ez dira eldu.

Zelan?

Jakintzan berengo maillan dago.

Bere tresnak atzeratuak diralako edo, lan oso gogorra dauko: eguzkipean, loi artean, ordu asko, pisti artean...

Lan au oso txarto ordaintzen da. Bere lanaren emona txiroentzako be ba dala ta merke saldu bear beti, baiña beste txiroentzako diran gauza asko ba dira karuak.

Baita goitik be, agintaritza aldetik be, laguntzarik gitxien artzen dauana bera da.

* * *

Alkartu bearra

Bere eskubideak betetutea nai ba dau, baserritarrak ez dauka bide bat baiño: beste baserritarrakaz alkartu. Auxe ez eban eskatzen orrillaren lenengo egunak?

Alkartu ezkero lanak errezago egiteko bideak be izango leitekez.

Baiña auxe da gure gatxa: alkartu eziña.

Egia da. Onetan be apur bat aurreratu gara. Gogoratu esne-arazoa. Baiña oindiño bide luzea egiteko geratuten jaku.

* * *

Ola zarrak

Antxiña gure baserrietan ola zarrak egozan, baiña galdu ziran. Zergaitik?

Txikiak ziralako. Banaka lan egiten ebelako. Lantegi aundiak etorri ziran eta ola orreik jausi ziran.

Ez ete da ori jazoko gure baserriai buruz be? Zergaitik ete dira merkeagoak Valencia'tik jatorkuzan ortu-ariak guk geure soloetatik daroaguzanak baiño?

Alkartu bearra ta alkartu bearra. Ez dago beste biderik. Baiña bide gatxa da.

* * *

Bietara lan

Beste urteera bat dauke batzuk. Lantegian lan egin eta bitarteetan soloan.

Ondo legoke, bear ba da. Orretarako arlo txikiak naiko. Eta andrai lan larregirik ezarri barik kontuz ibilli bear.

* * *


Aztertze sakon bat

Baserritarrak gaur aztertze sakon bat egin bearrean dagoz.

Orixe eskatzen dautse gizarteak.

Orixe eskatzen dautse Jaungoikoagandik artu daben zeregiñak, deiak.

LANDAKO BARRI



Giroa aldatzen doa, ala ta be, gaurko jakitura guztiakin ikasi ez dogun Agindu Nagusietariko bat: «Zeure bekokiko izerditik jango dozu!»

EUP!

Agurtxo'ren bikia naiz, amabosterokoa. Gurasoak diñoenez mutiko sendo, zindo ta zintzoa. Azalez euskaldun idurizkoa, biotzez euskaldunagoa baiña, gartsuagoa.

Mundu guztia maite dot; zuriak, balzak eta oriak maite ditut; zapalduak ba'dira geiago; langilleak! euren alde jokatu nai nuke... baiña nitzat lelenengo Euskal-Erria da, ez dot nik maitasun aundiagorik.

Jaio baiño len «illetak» be entzun nituan... eskerrik-asko! Orain arte beintzat fededuna naiz-eta, baiña ez olakorik mutillak! Betor aintzazko kanpai-ots alaia!

Lur mardul onetan aziko naiz, gizon egin, gizonak bear ditu gure Erriak-eta; beretzat lortuko doguz bakea, giza-bardintasuna, eskubide-askatasuna, ta alkarrenganako maitasuna. Ameslaria ete-naiz? Gure izkuntza maite dot, euskaldun utsa naiz Jainkoari eskerrak eta ez naiz lotsatzen.



Lenengo ikasketa, amagandik ikasi nuen abestia'ren zati bat abestuko dizuet:

Aitor'en izkuntz zarra
nai degu zabaldu
munduaren aurrean
gizonki azaldu
Baldin gure zaiñetan
odolik ba'degu
euskaldunak euskeraz
itz-egin bear degu.

Eta ez da txarto egongo bigarren zati au bere kontuan artzea:

Euskera galdutzeko
ez dago beldurrik
munduan ez da sortu
ortako indarrik
Sasi-jakintsu asko
dabiltz galdu nairik
asmo-txar oien guztiak
dirade alperrik.

Eta, sasi-jakintsu oiek, baliteke danak erbestekoak ez izatea, aize barridunak baizik.

Azkenez eskari bat. Orain bi gara jaten eta laguntza geiago bearko dogu. Gurasoak lasai dagoz baiña, nere ustez, zenbat eta laguntza geiago izan, ederragoak egingo gara; ederrenak izan nai dogu ta sendoenak.

Gure indar guztia euskerari bultzatzeko izango da, goi maillara jasoteko. Ori da gu bion elburua.

Tinko nauzue irakurle zintzuok. Agur danori!

AGURTXO'REN BIKIAK

EUSKERA

BATETAN ALA BATEAN?

Gure bizitza naiko luzean, euskera bakarrik berba egin eta irakurri be geien olan egin dogunoi arrotz egiten yakuzan esakera barriak, barra-barra zabaltzen ikusten doguz azken denborotan. Euretariko bat «batetan» berbea da. Ona emen aldizkarietatik jasotako esaldi batzuk:

«Amabosgarren gizaldiko Ama Birgiña gotiko bat eserita; aurrarekin aldare *batetan*».

«Zubieta ta Ituren, Malda Erreka deritzan inguru zoragarri *batetan* arkitzen dira...»

«Gertakari *batetan*, Kristoren jaiotza azaltzen da».

«Umeen euskal jai *batetan* bederatzi monjarekin egon nintzan».

«Zeregiñak Donostia'ra eraman ninduen astegun buru zuri *batetan* sartu... denda *batetan*».

«Ordu erdi luze *batetan* irakurtzeko modukoa, irakurleak une *batetan* bere erara ikusi dezan».

* * *

Nik *batetan* berba ori ordua adierazoteko bakarrik entzun eta ikasi izan dot: Ordu *batetan* lantegitik irteten gara. Baita orain berrogei urte baiño geiago ikasi neban San Iñazio'ren abesti zar baten be esaten da: «Antxe bertan itz *batetan* guziak dirade prestatzen».

Baiña, bear ba'da, abesti ori baiño zarragoak izango dira Bilintx'en «Bein *batian* Loiola'n» eta orain gogoratzen ez naizan lekeitiar aren «Egun *baten* Izpazter'en» abestiak. Ta orreitan ez dago TA'ren azterrenik.

Batetan esateko arrazoiak jakin gura neukez ta jakin egin bear litzakez. Ba-dakit Axular'ek erabilten ebana ta bere aldiko Bidasoa andikok be erabilliko eben kontixu; baiña ori ez da kontuan artu bear dan arrazoi bakarra. Gaiñera, arazo onetan be Axular maixutzat artzekoa ete da ba? Ara bere esaldi bat:

«Ezkara bein ere ur batetan bietan sartzen» (Gero, 31).

Guk bizkaieraz olan esango genduke:

«Ez gara bein be ur baten bitan (edo «birritan» edo «bi bidar») sartzen. *Bietan* eta *Bitan* ez dira bardin. Lenengoak «das dos veces» esan nai dau ta bigarrenak «dos veces»; eta ezpai barik, Axular'ek bigarrena sartu bear eban:

«Ezkara bein ere ur batetan (?) *bitan* sartzen».

Arazo au, *batetan* berba onen arazoa esan nai dot, sakonkiro aztertu bear litzakela uste dot, gramatika arauz eta berba orrek errian izan daben zabalerari begiratuaz. Len, izkelgi guztietan erabilten ete zan *batetan* berbea orretarako? Ta olakorik ba'litz, noiz edo noiz galdu zan orain erabilten ez dan izkelgietan? —Ez dakit nun erabilten dan iñun erabilten ba'da.

Gramatika arauz ondo ba'lego, len danean erabilten ba'zan eta oraindik ola esaten ba'da toki askotan, indartu bearrekoa da. Baiña, erabilten ez ba'zan edo toki askotan aspaldi galdu ba'zan, ez dago zertan barriztau, ta gitxiago oaraindik arauz ondo ez ba'da.

Ni ez naz iñor arazo onetan ezer baliokorik esateko, baiña egin al leikeenari zerbait laguntzeko bai; ta augaitik neure eretzi batzuk agertuko dodaz.

TA erdizkiak batzutan askotasuna agertzen dau ta beste batzutan beste zerbait.

«Zer ordutan lanera joan zara?»

«Atzo ordu onetan Donostia'n nengoan».

«Goizean joan naz».

«Goizetan joaten naiz».

Orduak esateko ia beti TA ori erabilten da: «bostetan», «lauretan», «ordu bietan» ta abar. Baiña orduak *bat* ez beste guztiak pluralak dira ta ia danetan TA ori erabilli bearrak singularra be modu orretan esateko oiturea ez ete dau ekarri?

Baiña egin daigun kontu «ordu batetan» ondo esanda dagola. Ala be edozer berbaren atzean beti olan esan bear danik ezin dot iruntsi. *Nun?* itaunari olan erantzuten dautsagu:

«Mendian izan naz».

«Mendi baten izan naz».

«Iru menditan izan naz».

«Iru mendietan izan naz».

Esaldi oneitan argi ikusten da TA erdizkia askotasuna agertzeko dala ta ez beste ezertarako.

Singularrean «mendian» da ta bardin idazlan onen asieran aitatu dodazan berbak be, «aldarean», «inguru zoragarrian», «egunean» ta abar; ta pluralean «mendietan», «aldaretan», «inguru zoragarrietan», «egunetan» ta abar.

Beraz, «en el altar» (singularrean) esateko «aldarean» esaten ba'da, «en un altar» esateko «aldare batentan» zergaitik esan bear da? «Ta» ori askotasuna agertzeko da alakoetan.

Esakera ori azken-itzagaz ebatera ez nator, baiña ia irurogei urte olakorik entzun barik eta irakurri barik igaro ta bat-batera agertu yakun esakera ori aztertzeko argibideak bear dodazala, bai, gurea dalakoan sasikoren bat etxean artu ez daigun. Zarrok gauza guztiak ez daukaguz txarrak, guri ziria sartzen ez da erreza izaten.

Batetan orren errazoiak agertu egin bear dira; ta beste geiagorenak be agertu egin bear litzakez.

KAMIÑAZPI

AITA AGUSTIN KARDABERAZ

Ernani'tar euskeltzale ospetsu au il zala ointsu berreungarren urtea bete da. Igaro dan Urrilla'ren 18'gn AGUR, euskerea zabaldu ta indartuteko sortua da-ta, bere gomutaz zerbait esan bearrean gagoz. Gorputzez erkin eta osasun gitxikoa izan arren, txikitatik, oso bizkor eta on izanez gaiñera lanean nekatzen ezana izan zan. Latin Donostia'n, Pilosopi Iruña'n eta Legedia Valladolid'eko Ikastetxe Nagusian ikasi ondoren, Jesus'en Lagundian sartu zan. 1727'gn lenengo mezea emon, urte batzuk Bilbo'n irakasle ta ogei urtean Gipuzko, Naparra, Araba ta Bizkaya, mixiñoak emoten, arakatu zituan. Ainbeste lan eta nekez osasuna galdu ebanean, Loyola'n yarraitu eban, 1767'gn urtean yosulagun guztiak erbestetuak izan ziran arte. Lenengo Corcega'ra ta gero Castel S. Giovani'n deun entzutegaz il zan arte. Guztiak deuntzat euken, nahiain andia izan zeikeanik ez uste izan gizartean edozein lez agertzen zalako. Deuntasun gayetan bere gaztetako bizitza arrigarria ezagutu gura dabenak, or dauko «Ardores de un Serafín» idazti bitan 1924'gn A. Gonzalez Pintado, S. J.'k argitaldu ebana.

Kardaberaz Euskelzale zintzoa

Kardaberaz A'k, ainbat idazti euskeraz argitaldu zituan. Onein artean, 1761'gn «Eusqueraren Barri Onac» deritxona. Antxe agertzen dira ainbeste bider aitatu diran itz oneik: «Baiña gure probetxu on ta ar koren anima salbatzeko Euskarak burua jasotea Jaungoikoak nai du. *Gure baserritan gente prestatu dirauten artean, euskerak iraungo du. Esan oi dana: oiei lepoa ebaki edo bizia kendu gabe euskerak ezin utzi ta kendu diteke». Gaur ainbeste baserri etxe ustuten ikusita zer esango ete leuke?*



Gaur ba'litz be!...

Berreun urte igaro arren aurrerabide andirik ez dogula egiten ikusteko ara zer diñoan: «Seme eta alabak txikitatik eskolan erderaz eta euskaraz edo guztitara, oitu bear dira, ta arrazoi gabeko lotsa beltz gaiztoa izatu ta kentzera. Bestela zer lotsa gaizto ta itxusiagorik, euskaldun galtzadun ta gizon egin bat, lau erregloi euskaraz ezin irakurririk, ez atzera ez aurrera ikustea baño. Ta ori zergaitik? Ain aisa, erraz lau egunean libru bat irakurten ez ekin edo jardutzeagatik. Lau eguneko ejerzizio piska batekin seguru erderaz bezala edo aisago, euskaraz irakurtzera egingo zera; egin eta irakurri eta nekerik eta lotsarik eztago. Emen guraso ta maisuak falta andi bat erremediatu bear dute, gure euskara oraindaño baño mesede geyago egin jenteen artean, beste lengoajerik euskara baño ditxa gabekorik ezta ikusi, ta gure jatorrizko edo jaiotzako izkera ez ba'litz bezala, ta euskara itz-egitea pekaturik andiena ba'litz bezala giza artetik kendu ta lurpean ondatu nai dute, ta eskoletan sortija edo señalearekin, azote ta kastiguakin galerazo nai dute. Zer erokeria andiagorik au baño? Euskaldun prestuak, ez arren orrelako ofensarik egin zuen lenengo ta beti bear dezuten euskarari egin. Zuen juizioa non da? Euskalerrietan nola gauza onik izango da».

Orduan be!...

Dirudienez ba-ziran euskerarik ez ikasteko aitxaki billa astia galtzen ebenak. Ara Kardaberaz Aitaren diñoskuna: «Orregatik deabruak bere gezurrarekin engañatuak kalte geiago animetan egiten dute. Batek dio Euskerazko Dotriña ta liburuak ezin irakurri edo aditu dituela, besteak Euskera Algarabia, gregeria, gurgurra edo naspil madarikatua dala. Ah, dontsu txoroak ondo erruz itsutuak! Orrek gezurrak ametsak edo aitzakiak dira. Euskera bedeinkatua, edo Jaungoikoaren bendezioz eta erregalioz bete da. Euskera, Euskera berez ta nasgabe edo garbia argia ta bizia da. O, Euskaldunak ala ba'lira! Euskera guziak bezin ederra eta bizi asko baño ederragoa da; erreza ikasten, itz-egiten eta irakurten da» (Kardaberaz A., Ondo Ilten Icasteko idaztiaren sarreran).

Geigarria

Amaitzeko, ara H, h, ta J dirala-ta A. *Kardaberaz'ek diñoana:* «Atxea *letra dan edo ez, autoren artean eztabaida andiak dira, naiz letra naiz aspirazio dala soñu gogorra ematen duana, emen gure euskera eta Bizkaian* atxe *ori alferreko edo serbitzen ez dun gauza da» (Eusqueraren Barri Onac).* «*Jota, J, euskerarena ezta, baizik erderatik artu edo etorria».*

Kardaberaz Aita'ren gomutaz berreungarren urte onetan egin geinken gauzarik onena «bakotxak egin dabena ta maitasun batez alkartu danon lana be; ez da geyegi nai bogu Euskerea sendotu.

GAM

OLAETA'KO PUJANA JAUNARI

(IDAZKI - AGIRIA)

Abade agurgarria:

Negar-gure aundiaz irakurri dot Aramaio'ko euskera-galtzeari buruz nik ZERUKO ARGIA'n idatzi nebanari erantzunaz, astekari beraren bidez zuzendu eustazun idazki-agiri ituna.

ITUNA, bai, benetan ituna, niretzat, zeure idazkai samingarri ori, zio bigaitik: gure ainbat errietako EUSKERA-GALTZEARI BURUZ diñozunagaitik eta Olaeta'ko semea zareala adieraziaz egiten dozun aitorpenagaitik, batez be.

OLAETA! Nik beti gomutan izango dodan lurralde bedeinkatua!

Antxe, 1937'garren urtean izan geban gudaketa ikaragarri artantxe, aurkitu bai eban nire anairik gazteena zanak, benetan eriotz-itzala. Oindiño bere gorputza nun eta nola lurpetua izan zan ez dakigula... Jaun Goikoak beragaz dezala, gaxoa!

Baiña, Pujana jauna, gertakun negargarri ori baiño lentxuagotik ezagutzen neban nik zure jaioterri kutun ori. Urte batzuk lenago bertan emon neban euskal-itzaldi bategaitik, beti gogoan izango dodan EUSKAL-JAI artara otxandioar euskaltzale sutsu-sutsua izaniko Giokoetxea'tar Erroman zanak bertara eroan nindualarik.

Orduan bai, orduan EUSKALDUNAK Olaeta, Otxandiano, Aramaio ta inguruak! Baiña orain? Orain zelan aurkituten diran zeuk diñozu ederto niri zuzendu daustazun idazki-agiri orretan.

Nik aipaturiko idazkai artan Aramaio'ko euskera-galtzeari buruz esaten neban, beste esan batzuen artean, gipuzkeraz: «Sinistgaitz izatekoa bait-da, oraindik 40 urte ez dirala, EUSKALDUNA zan erria ain aldi gutxiren barruan ERDALDUN biurtua izan dala iruntsi bear izatea».

Eta zuk, zeurean, itanduten dozu: «Sinistgaitz dela diozu, adiskide? Ez dut uste orren sinistgaitz danik, Aramaio'n bezelatsuko ondamendia beste erri ASKOTAN ikusten degu-ta».

Eta ondamendi onen eredutzat, Bizkai'ko erri auek izendatzen dozuz: Otxandiano, Ubidea, Elorrio, Ermua, Lemona, Galdakano, Sondika, Derio, Zamudio, Sopelana, Urduliz, Gernika, eta Mundaka...

Gero, «Ta Gipuzkoa'n?» itanduten daustazu, beste esanaldi mingots au geituaz: **«Gipuzkoa'n ere ez dut uste euskera Aramaio'n eta Bizkaia'n baiño osasuntsuago bizi danik. Aramaio'ko ondamendia erri batek baiño geiagok izan dutela,, nik uste. Ta ezetz, orrela ez dala, oker nagoala froga bazenik, egundoko pozaldia artuko nuke. Orixe entzutea besterik ez nuke nai ta».**

Ez, Pujana jauna, ez; zuk gura zeunkan poz ori ezin dautzut emon ,Gipuzkoa'ko erri geienak Bizkai'koak baiño euskaldunago aurkitzan dirala aitortuaz. Gipuzkoa'n euskera galdu daben edo gal-zorian aurkitzan diran errien izen-zerrenda emen ipinten asiko ba'nintz, Bizkai'koaren aurrean oindiño lotsagarriago geldi liteke ta.

Baiña, diñogun ondamendi au, ez da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'koa bakarrik; EUSKALERRI osokoa dala esango neuke nik... Baiña ori zergaitik? Zergaiti onen barri, ondo baiño obeto dakigu, bai zuk eta bai nik...

Gure errietan kanpoko jente asko sartu da azken aldi onetan, lantegi barri asko sortu dirala ta; baiña, bitartekotasun ori (influencia ori) egon ez dan errietan be, euskerea galdu da, batez be erriko abadeak euskaltzaleak ez diran errietan. Gertakun tamalgarri au neuk oartu izan dot, beintzat, ikusi edo ikertu dodazan gure erri euskaldunak izanikoetan.

Baiña, ez gaitezan geiegi mindu, ez larritu, oraiñaldiko egokera tamalgarri onetzaz. Euskal-eguzkia agertzen asi da. An-emen, EUSKAL-ikastolen bidez eta egite ortatik sortuko jakuz, bai orixe, biarko euskaldun euskaltzaleak, eta goiz edo berandu barriro euskaldun biurtua izango da zuk eta nik ain maite dogun EUSKALERRIA. Agur, eta agindu.—ZELETA

POZAK ETA KEZKAK

Ipar-aldeko euskaltzain jakintsu bateri euskeraz edo dana dalako orretan idatzitako azken idaztia eskeñi dautsoe. Jaun orrek editorialari itzuli ei-dautso esanaz: «Nik ez dot ori ulertzeko aiña gazteleraikasi»... gu ixilik!

* * *

Emakume batek beste Ego-aldeko euskaltzain (Euskaltzaindian karguduna) bateri, euskeratzeko ipuin bat ekarri dautso. «Zelan nai dozu, h'gaz ala h barik? itaundu eutson; Emakume ori h zalea zan aurki eta «H'gaz» erantzun eutson. «Parkatu baiña nik ez dakit h'ak nun jarri bear diran», euskaltzain eta idazle trebeak. «Ba, olan dala, h barik egingo dogu», eta orretan geratu ziran.

* * *

Euskal Antropoli bigarren astekoa: Neure lagun baten aurrean lau neska entzutera joanda (euskerazko egunean). Euretarik bat bakarrik euskalduna ikusiko danez. «¿Qué dice, qué dice?» euskaldunari... «No sé, no le cojo bien» erantzuna. Itzaldia amaitu zanean laurak txalo otsean. Zaletasuna ala clac? Lenengoa ba'litz datorren urtean obeto.

* * *

Euskerantorako ikas atala:
—Problemaren planteamendu sanoa.
—Estratejiaren sintesiaren plana.
—Pertsonaia estrainio eta pasibo.
—Politika dezisioen zentroen preokupazioa.
—Historiko-artistiko printzipioen deklarazio...

Eta beste nai aiña aldizkari batu agertuta. Egitan, arrituta gagoz nola eben jarri izenperatzean: Bajio, Altuna ta Helechomacho!

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

EUSKAL HIT PARADE

Ares jaunak bialdu dausku lenengo irullabeteko neurketa ososoa, ta len esan genduneti ez dago ezer askorik geiago: Estitxu'k bere txapeldun «Bakarrik» eta atzerago indartsu dabillen «Zeru Garbia» orrein gaiñetik, oraindik, urte bi ondoren, or darabil onenen artean beste a «Nigarrez». Oni, batek bakarrik egin dautsa gogor, Libarona'k, Otsailleko neurketea irabaztean. Aipa-garria da baita, Luis Mariano zanaren «Ezin aztu», onenen artean aurkitzea, amalaugarren geratu da.



Beste zerbait be ba-diñosku Ares jaunak: «Disko barririk ez dala ageri» aor baiña, illaren amaieran barria ta ederra entzun al-izan dogu, Zorion'en «Bizi beti Euzkerea», ta gose-aldiko opillak ba'lira saltzen ikusi gendun, datorran neurketeari itxaron bear.

Moi Egaña

Gaur, Moi, itzal aundikoa egin jaku, ez eres-jatorrean bakarrik, baita eresi goi-goiko euskal giroan eta gaurkotasuna daroen abestietan be.

Portugalete'ko «Danok Bat» zortzikotean be bat dogu berau, ta orreigaz edo bakarrean, or dabil jaialdiak zear. Abeslari barriak aukeratzen eta zuzentzen be ba-dabil. Yayone ta Yoseba'rentzat abestiak gertatzen dauz, baita euskal-kutsudun beste abesti ugari be.

Moi'k ez dau ots-aundigarririk bear izaten, orren abots-ozen orrentzat alperrik asmatu ebezan mikroak. Antzokiak txiki geratzen jakoz, ta abots ori ezin lotu. Orretan dabizenak diñoenez edozein gorenengoren alboan lasai agertu daike, ludi osoan... Ta apal-apal, Romo'n bizi da, Milan'en ba'litz lez. Ta ori gura leuke: Romo euskal-milan bat izatera jaso.

Loroño'tar Josu

Larrabetzu loratsuan jaioa, udabarrian jaio zan, ta sasoiz be udabarrian dabil, udara bidean. Bilbao'n egin ebazan bere ikasketak: pianoa, auspoa, eresgintza ta armonia. Arrezkero, or dabil, etxean eta erbestean, bere jakintza erakusten, or baita, auspo ta pianorako eresi politak idazten.

Gaur Bilbao'n bizi da, ta bere ekiñaldien tarteetan, berak ain jator joten dakiazanak besteeri erakusten. Berau dogu Bizkai'ko Bakidekiñen Alkartea sortu ta zuzenlaritza daroana, ta bazkideok lagun, Euskal-erria zear erestaldiak emoten.

Bere zuzentzapean Alkarte onek illero emoten dabezan erestaldiak bostgarren urtea bete dabe, joan dan Joarrailleko 28'an emondakoa zoragarria izan da. Ta eskerrak berari ta lagunori, Columbia etxearen alegiñak osotu al-izan dira; L. P. disko bat sortu da ta il onetan saltzen jarriko dabe: Europa guztian lortu ezin ebena ta zoragarri, auspe pillo bat batera joten, auspo-batza'ren doiñua euskaleresiz jantzita.

Orain artekoa, Ares jaunak emondako argibideetatik etara dogu, ondoren datorrena, Ares berak erderaz idatzi ta euzkeraz jartzeko



eskatu dauskun idatz-lana dozue. Irakurri astiro, ta or ikusiko dozue or dirala azke ta azpijanean, benetako euzko giroa daben egikizunak ondatzeko ixil-aginduak betetzen alegintzen diranak, ta orrein atzetik, okerrenak, otso-larretan eta eliz-altetan ezkutatzen diranak.

ASTI

EUSKERAZ, EUSKERAZ! KANPORA, KANPORA!!

Egun gitxiren barru, euskal-jaialdi bitan izan naiz, abeslarien orretarikoetan, ta bietan giro bardiña aurkitu dot, entzuleen arteko zatitxo baten giro-ikasi bat, ta orretzaz zerbait esan nai dot. Bai, zerbait esan benetan suminduta nauke-ta. Neu, ta entzule geienak, arrezkero entzun dodanez.

Abeslari batetzaz diardut, eta egikizun bakarratzaz da danau. Ez noa lenengo a izentatzen, alderdikerien iritxiagaitik, bai baiña bigarrena.

Abeslaria, lan orretara lotu ta orretatik bizi dana dogu; abesteari asosoan lotutakoa, ta euskal jai orreitara eskeindu zanean ez eban oztoporik jarri ez baldintzarik ipiñi be, beste jai-nagusi bat be laga eban tartean. Ori, ta bere bearkunetarako jarlekuak erosteko asmoan zala, orrenkadatik etara egin bear izan gendun. Orra bere jokabidea.

Lasai esan dagitsuet, gorenengoetako abeslaria dala. Baita, ikusi ta entzun genduanetik, ez zala bere agerraldian iñolako okerkerik izan, ezta kutsu gaiztoko beste ezer be, ezta entzuleak asarretzeko ezer. Baiña, «oker izugarri» batek —itxuraz— bere bizi osoko lan gogorra ondatzeko zorian jarri eutson, ta eskerrak bere entzuleenganako begirune orri ta orretako zati nagusi (onari) a bere alde jarri zala, une oker ori zuzendu al izan eban. Ara egi biribil bat, lanetik, lan gogorretik bizi danak ez lauke arrisku orretan bere etorkizuna jarri bear. Au egia dala, berak, bein eta barriz, euskal-jai orrein alde bere zerbaitxo egitea nai ebala ta egin eban.

EUSKERAZ, EUSKERAZ! KANPORA, KANPORA!!

Zer jazo zan ba?... Ona emen gertaerak: Jai-aldi bietan eta berak iñarduala alakotxeak entzun ziran: «Euskeraz, euskeraz!... eta «Kanpora, kanpora! Zer zala-ta?... Ez dakit... Ez ete eban ba euskeraz abesten, asi ta amaitu!... Ez, ez zan orregaitik, «gracias» erderaz esan eban, eskerrik-asko Aitor'en izkuntzan esan ondoren. Ta lau-katu aozabalek «Euskeraz, euskeraz!» deitu ondoren, ez ekiala euskerarik aitortu euskun ta orrek beste areik sutu ebazan. Txistu banaka, «kanpora, kanpora!» eupadak... ta ele-naasa.

Ta danori euskal-abeslari egin bati; euskeraz itz egiten jakin ez arren, euskeraz abesten dakianari, eta or eta emen eta erbestean eta danean euskerea zabaltzen diardunari, berez eta diskoetan. GIZON bati, bere irabazbidea itzi ta euskal entzuleen oberako datorrenari. ABESLARI bati, okerkeri-arriskoak nola jasan dakianari, ez-jakin gitxi batzuen erruz... ta onei auxe diñotset:

I... bai, i... jai-aldietan «Euskeraz, euskeraz! orroaz abillen orri auxe diñoat: euskal-jaiak ez jok ezer onik irabaziko ire aokada orreik abeslarieri arpegira botata, euskeraz ez dakiana ba'dok be, onen alde daukan guztia emoten dabillena dok, bitartean, batzu-batzuk, euskeraz jakin arren, ezin dirala etorri edo abestu jiñoek, osagillearen agiria aurrean dakarrela, edozein zezenlari ba'litzok-edo.

Zinera oianean, edo kiroletara, edo lanera, abar-ta-abar... deitu egik «euskeraz, euskeraz!» ta ekiok gogor. Baiña, orretan asi euskel-abeslariei, borondate onez eskaindu diranei?... ez mutil, edo neska. Jaso? jaso daigun bai; ondatu ez.

Ta esangura bat idazkorzean itzi dot, ez irabazi ez dabelako, txukunegia ez dalako baiño. «Euskeraz, euskeraz!... Kanpora, kanpora!» diadarka dabillazan orrei eskeiñi gura neutsen. Ta izenpetuta, e?

Euskal abesti-abeslarien goraltzea itzi ta euskal-jaialdietako entzule batzuen eziketan asi bearko ete-gara?

Bein, gipuzkoar talde baten erakusketa bat ikusi neban, euskal abesketaren «Cuna y Nata» izena eban, eta aurkeztean erderaz egin euskuen, ez neban baiña «euskeraz, euskeraz!» ezta «kanpora, kanpora!» orreitakorrik entzun. Zer zala-ta? Batzuk egiten dabena beti ondo egiña, eurak ba'lira egille. Eurak ez ba'lira baiña... «Kanpora, kanpora!» Ez mutillak, milla bidar EZ!

Abeslari adizkide, ik bai ederto lotsatu ebazan entzule banaka areik, ara baiña... ik ez dok errurik...

JUAN MANUEL ARES

ERRIKOIKERI GABE

Edestia zear, ta batez be azken urte oneitan, euskaldunok gure izkuntza zarrari iraun eragiteko egarri bizi bat agertu degu: jakituri guztietaraiño aaldu, gure urrengoari bizitasun eta sakontasun berriagaz emateko. Detxepare'n bertsoak eztira gaurkoak: «euskera adi kanpora».

Bizi izateko egarri onek, ainbeste ta ain traba aundiari goi egin dio bere bide larrian zear, burruka gogor ontatik garaille urten dula esan geinteke-ta, gure izkuntzaren gaurko egoera onek; ez ain ona berari bakarrik begiratzen badiogu, traba barriari goi egiteko indarra emoten dakizkigu ta etorkizun euskaldunago bat izango degun itxaropena biztuten da gugan.

Azkenengo urte onetan euskerari iraun azotea, dagoan era txiroan izan da be, egitan ez da izan, ez, ume-lana. Izkuntza madarikatu bat eginda itzi eben bere aurka jaso ziran bazter guztietatikoak, ideoloji arra arrasi azkogaz.

Gaur oraindikan entzuten dira olako arrazoiak gure artean, euskaldunon artean bere bai.

Agiria or dago, azkeneko T. U.'n agertutako idazkaia: «Errikoikeri gabe mundu zabalean» idazpurugaz, ta izenordeagaz izenpetuta.

Idazkai au laburki adirazo gura neuke, esanaz bide batez, arrituta itzi nindula ikusteak nire kezkak ta onentzako erantzuna, denak orri batean.

1.—Nire betiko eskariagaz Elkarte Batzar Nagusietan, baita aurretiko T. U.'n agertutako idazkaigaz lortu gura dodana gure izkuntzarentzat bardiñezko artu emon bat da. Ez geiagokoa. Ta bardiñekoa, ikusita une onetako gure al izateak, esan gura du, euskerarentzat irigitasun apur bat Elkarte Batzarretan baita bere agerpen, ikasketan eba atar.

Danak euskeraz ez dakiela erantzutia, izkuntza biek erabilteko nire eskariari, gauza bi esan gura leitekez: edo ez duela nire eskaria ulertu edo ba duela benetako asmo bat ezbaiko ori ebatzi ta euskerari dagokiozan artu-emon bardiñak ukatzeko.

2.—«Koperatibar» baten minberatasuna arrigarria da. Nik ezbaiko garbi bat asmatu dut jeografi edo legearazo sakonetan sartu barik. Zein zabala dan mindua ezagutzen dut baita zerbait eskubidietaz jardukitzeko, ta ez dut iñoiz jarri, ez odolean, ez jatortasunean. «Ulerzak lenago ta itz¿egik geroago».

3.—«Emen gagozanok ogi bidea garkoz». Tesis zar bat da au, ta oso koperatibatasun gutxikoa berau. Alde batetik izkuntza ta besterik gizonen artu-emonak banatzen ditutzan tesis zarra. Ez da izkuntzaren ezta-baidarik ez dagola. «Koperatibar batek» izkuntza garrantzitsua dala ezagutzen dau, baiña etxean erabiltzeko dala uste dau, ibilkuntza ain garbia, ezin leiteke naastu euskera lako garratzi bako ta ain unibersaltasun gutxiko gauzagaz. «Koperatibar» orren eretxiz, emen gera (munduan gera esan lekien) produziñoa geitzeko, lan lekuak jasoteko, altzapena edo desarrolloa bultzatzeko ta gizarte ezbaida erabagiteko.

Baiña gure Koperatibar orreri galdera batzuk egin gura neukioz. Infraestrutura lantzen duen ekonomi indarrakaz artu-emonik ez dauken jakintza mota batzuk lakoa ete da izkuntza?

Zelan egon leiteke produziñotik aldenduta gizonen arremanetarako bearrezkoa dan izkuntza?

Ze kriterio metodolojiko dala-ta banandu ta aurka jarri bear degu ogia ta izkuntza, produziñoa ta jakintza, ekonomi ta linguistika gizon elkarte baten? Izkuntzaren ezbaiko au, azaldu ta ulertuko al dogu, oraingo egoera sortu daben elkarte indar ezbardiñak kontuan euki barik?

Badakit gure koperatibar onek ez daula erantzunik emango galdera oni, ze aurrez bear dan besteko buruargitasuna euki bear eban asmatzeko, ta ez daukala agertu da. Bere idazki orretan ezta alegindu izkuntzari buruz teori zoziolojiko zintzo bat eratzen, burges tesis zar bateri eutsi baiño, kapitalismo ta zozialismo goitu dabela esaten duen gizonentzat ain gutxi egokia.

4.—Asterketa guzti onek eskutik lez garoaz, ain zabaldutako errien anaitasuna, gizonen eta lurraldeen ipuiñera, au lortzeko «jaso bear diran jasotekoak jasoaz», daukaguzan baiño, buruko miñ geiago artu barik.

Benetan, daukagun egoera onek, burrukagaz, ezkutatzen ditu usteak. Klaseen ta errien artean dagozan ezbardintasunak kendu arte, ezin izan leitekezan usteak. Etorteko dagoan paradisoa iruditzen dauskuen usteak, baiña kokoloak engañatzeko bakarrik balio duenak. Ta erriaren aldeko ideoloji bereko ta aritu baten ez egona erakusteko usteak, azkenez.

Gure Errian orain dagon izkuntza burruka, Klaseen burruka dan kontexto barruan bakarrik aitu leiteke, ta euskaldun langilleok gera, ardura daukagunoi ogia ta izkuntza, benetako erantzun bat emateko gertu gaudenok.

JOSU OTADUY

EUSKAL MARGOLARIAK

Igaro barri dogu Deusto'ko Ikastola Nagusian ospatu dan Euskal Antropolojiaren bigarren astea. Au dala, ta apaingarri lez, beste egite batzuk ere goratu dira. Eurenetik bat euskal margolarien erakusketea izan dogu. Onetzaz noa gaur mintzatzera.

Gure margolariak berrogei margozki aurkeztu dabez guztiz: mueta guztirikoak eurak. Batzuk euskal margo-erti zarrean edo klasikoan lerrokatu leitekez; beste batzuk eta geienak joera barrian. Ogeta bat margolari oroz.

Lenen Mexiko'k

Lentxuago Mexiko aldera amaika joan ei ziran, baiña euretik erakusketa onetara sei soillik etorri dira, ta euren margozkiak oraingo egikera berriztuaz ager-arazo ditue. Euren abizenak: Basterretxe, Ibarrola, Larrea, Mendiburu, Sistiaga ta Zumeta. At, atzerrian geratu dira besteak, Harvard, New Orleans, Barzelona, Madrid eta Cuenca'n. Azkenengo onein margozkiak tamalez ez doguz ikustatu. Beste baten izan bearko!

Etxekoak, ez dira makalak benetan. Onein artean Uzelay, Aranoa, ta Iñurria dozuz. Dakigunez, beti euskal-erriaren margozkari bikaiñak euren margo era bereziakaz izan doguz. Ots, Zuloaga, antzelari yaukal-apartekoa, Zubiaurre tab. egungo egunean irurok Zuloaga ta-arein urratsak jarraituz, euskal-erriaren margo-erti onen oiñordeko lez begiztatu oi doguz.

Yugoeslabiaruntz begira

Oingoz gure margolariok Yugoeslabiaruntz begira daragoie. An izango dan erakusketan arte izan gura leukee. Ortarako Euskalerriko lau Aldundiak diru pizkat aurreraturik euren margozkiak ziurtu dagiezela, ditxaroe. Gai au artez urtetekotan Egoeslabi'ko margolariak ere, bakoitxa bere margozki onenegaz, euskalerriratuko dira alegia, Bilbo'n, Donosti'n, Gazteiz'en ta Iruña'n azaltzeko asmoz. Euren eta gure margokuntza alderatu, bardindu ezezkeroz, bion artean goibe edo alde aundia dagon ala ez orduan begi batez ikusiko dogu.

Erri-alkartzeak, naiz kirolez —oraintzu txinar ta goi-ameriketarrak ping-pong jokoagaz lez— naiz erti-lanez, naiz beste eskugarbi era batez guztiontzako egokiak baidiralakoan bizi garanetz ziur-ziur.

ARREGI

KONTU KONTARI

Alkar-Izketan

—*Kaixo, Manu, aspaldion zelan abil?*

—*Ba, ondo esan bearko, txarrago yabilzanak be ezagutzen yoazat eta. Eu be, Anton, itxura oneko ago.*

—*Bai, I. e, osasunez ondo ta egunokaz lanpetuta ibili nok eta atseden apur bat artzeko, eugaz «barriketaldi» bat egiteko asmotan ñengoala, eu ikusteagaz asko poztu nok.*

«Alkar-izketa bat» esan gurako dok, gaur egunean labatik arako opillaren antzera, oin besterik ez dok entzuten eta.

—*Esakera ori ondo yakok baiña eñok asetzen. Bakik zegaitik? Alkar-izketa izan bearrean, bakar-izketa sarritan biurtzen dokalako. Len barriketaldi bat egin eta bakean etxeratzen gintzozan. Oin alkar-izketa, alkar-aitu eziñegaz amaitzen dok, asarrez ez dokanean.*

—*Neu be eretxi orretakoa nok. Aiko, lengo egun baten lagun bi alkar-izketan ikusi ñoazan, eta alango baten, sututa batak besteari esan yeutsan: «Igaz ezin leikek gauza onik egin...» eta beste barik bakarrik itxi yoan... Adizkide zirudienak alan ikusiaz arrituta gelditu nintzoan.*

—*Nik etxakiat zer gertatzen dan, baiña bayirudik, gaurko yentea piperminduta yagoala, bazter guztietan alkar-aitu eziña baiño ez dok ikusten eta.*

—*Neuk be orixe oartzen yoat, batez be gazte ta zarren artean, naiz ta oingo gauza bakarrik ez izan, ezta arritzekoa be. Bakik ba, gaztearentzat gauza guztiak barri dozakala, lengorik ez yok ikusita, eta zarrarentzat, gazteak barritzat daukozan gauza asko zarrak dozakala. Alkar aitu eziña ba aitzekoa dok.*

—*Ez dok ori bakarrik! Ez dok ikusten euren artean zelan yabizen? Uskeri baten eretxi batekoak ez diralako alkarri itzik egin barik. Ori zelan azaldu?*

—*Nik etxakiat, baiña yakituri larregi dabelako ez beintzat. Epebako, arro, ala euren aurrean guztiak burua makurtu bear dabela uste dabelako ez ete dok izango? Batek bayakik!*

—*Olangoakaz alkar-izketarik ezin leikela, bai beintzat. Nik uste yoat benetako «alkar-izketarako auxe bear dokala: Norberea garbi azaldu, besteena gogo onez entzun, norbere eretxikoa ez danari itzalez begiratu, ta egi-bidean ipinteko alegiñak egin eta... eroapena...*

—*Olan izan ezkero esakun zar au egia izango litzakek: «Gizonak itz-eginda aituten dira».*

—*Ori alan dok. Baiña gaurko urduritasun, norberekeri, arrokeri ta «batxillerkeri» norberak egin, erein, ta norberak yan eta gauzak bapatera lortu gura izateagaz alkar-izketa baketsurik amesetan be ezin leikek izan.*

—*Orretan nagok neu be. Eta oin yoan bearra yaukat eta agur adizkide.*

—*Agur urrengorarte*

URIGOITIA

NUNDIK NORAKOA

III.—ETXETIK BERTAN

Gure etxearen ondo-ondoan Gurutzeko Lekaimeen ikastetxea egon eta dago, esanda dodanez. Araxe joan nintzan, umetan, lenengo ikasketak egitera. Lenengo jaunartze-aldiraiño neska-mutikoak gengozan batera, monja baten ardurapean. Ortik aurrera, banandu egiten giñan. Neskak goiko ikastoletara, batxillerra egiteko-ta, ta mutillak kanpora, gurasoak al eben edo gurago eben lekura.

Ume guztiak egin dabena egiten genduan guk sasoi aretan: zirriborroak kuadernoetan eta, batzuetan, kaka praketan ere bai. Berbaz eta berbaz eten gabe arrapatzen ba'ginduzan, egal bateko jarlekuetara eroaten ginduzan monja sendo ta gogor arek. An ankak lotu soka bategaz eta noizean bein asto-belarriak, papelez egiñak, jarri oi euskuzan, lotsagarrian zentzagarria izan gengian. Onak ba'giñan gozokiak eta okerrak izan ezkero palmondo baten adarkiaz izarrak ikusierazo.

Lenengo jaunartzerako autortza eragitera erriko apaiz on uts bat etorri yakun: don Jose Velez: arabarra, Dayo'koa. Gaur ilda, lurpean gorputzez eta zerugoietan arimaz. Geroago esango dot, on utsa ez ezik ontasuna gizon eginda ere ba-zan. Orduan amari kendutako txokolatearena esan bear. Gaur, ostera, gose nagoneko txokolaterik eza aitortu bear dautsuet. Lenengo aitorpen arek biotzean min eta oraingo onek urdaillean kili-kili mingarria egiten dauste. Katillukada ederra artuko neuke, iñork emongo ba'leuskit... txurro ta guzti, badaezpada.

Ango egotaldia egin ta gero norabaitera joan bear eta erriko irakasle bategana joan nintzan. Ezkongai zegon orduan. Urteak igaro ta sema-alaba ederrak azita ikusi dot. Eibartarra zan. Orain Eibar'koa ta Santurtzearra dogu. Izkuntzalariak uste dot ulertu daustela zer esan gura izan dodan. Beronegaz lenengo zenbakiak ikasi nebazan (len ikusi baiño ez neban egin-ta). Idazten ere polito ikasi ta burua lantzen pizkana-pizkana.

Tamala! Ainbeste burua landu ta egun iñork burua apurtu!

Nik eskola erabilli izan dot beti ta lagun batzuk eskala... Ortik sortu yat ezbear larria askotan. Alan ta guzti ere, nik eskola gurago dot izan, eskala ta eskaladun guztiak urrun jaurtikiz. Azkenengo ordua datorrenean, nik neke gitxiago, igitu bagarik, eta eurak izerdi! Orduantxe izango dogu bardintasuna. Bitartean entzun urrengo atalburuan agertzera noana; ta zuek aukeratu egikezue eskola ala eskala mundu onetarako. Parkatu gaurko inguru-minguru oneik eta datorren txandan erbestera-lagun izango zayataze.—ETXEBARRIA'TAR JUAN ANGEL

ARAMAIO... ERDALDUN BIURTU...!!

ZELETA JAUNARI ESKUTITZ IRIKIA

«SINIST -AAL DITEKE...?» galderarekin, euskeraren etorkizunerako garrantzirik aundieneko dan artikulu bat idatzi dezu Z. Argian, Araba'ko erri Aramaio «*erdaldun* biurtu dala esanaz.

Biurgune beltza... bat bada!

Ona zuk diozuna: «...Sinisgaitz izatekoa bait da, izan ere, oraindik 40 urte ez dirala euskaldun zan erri bat, ain aldi gutxiren barruan, erdaldun biurtu dala iraun-tsi bear izatea».

«...*Aramaio!* Nik orain 40/50 urte ezagutu nuan uri *euskalduna erdaldun* biurturik dago orain...!

* * *

Z. Argian irakurri dedanez, zure artikulu orrek oiartzun zonbeit izan ditu.

Batik-bat, Bizkai aldetik adixkide batek erantzun dizuna garrantzirik aundienekoa da eta emen agertu nai degu. Ona zer dion:

«...Sinisgaitz dela diozu, adixkide...? Ez dut uste orren sinisgaitz danik, Aramaio bezelatsu, ondamendia beste erri *askotan* ikusten dugu-ta».

Bizkai'ari nagoalarik *amar* erri *gutxienez* aipatuko nituzke, gutxi gorabeera Aramaio'k bezela berrogei urteren buruan euskal izkuntza galdu dutenak edo galtzeko irrixku aundian daudenak.

«...*Ia Bizkai guzia* erdaldun biurtu zaigu, auzo errixkak izan ezik».

Eta bere iritzia sendotzeko ona, agerpen gisa, esaten diguna:

UBIDEA: Azkenengo gerratean euskaldun uts genduen. Ta gaur zearo erdaldunduta dakusgu.

OTXANDIANO: Ez nuke esango gure izkuntza erabat ondatu zaigunik, baiña abiada bizian estutzen doakigula, ontan ez dago ezbairik.

DURANGO: Ango euskeraren azken-zotiñak entzungo bazenitu, negar letorkizuke.

ZORNOZA: Burgos aldeko erria ematen du...!

MUNGIA: Gure euskera zaar au larri-larri ta arnas estuka bizi dan erria.

«Aramaio'ko zorigaitza izan dutenak edo urte gutxiren barruan izateko bidean daudenak, ainbat erri geiago aipa dezaizkizuket. Or dijuakizu izen-zerrenda: Elorrio, Ermua, Lemona, Galdakano, Sondika, Derio, Zamudio, Sopelana, Urduliz, Gernika, Mundaka».

«...Ta Gipuzkoa'n? Gipuzkoa ere ez dut uste euskera Aramaio'n eta Bizkaia'n baiño osasuntsuago bizi danik».

Bizkai'ko adixkide orrek diona egia dan edo... ez, guk ez dakigu, baiña bere arrazoiak izango dituala derizkiogu, esaten duana aitortzeko.

Ona «DIARIO DE NAVARRA'k» diona.

«...Euskerarenganako zaletasuna zabaltzen ari da gazteetan eta ere agintarietan, baiña erdi euskaldun dauden erri txikietan zearo galtzen dijoa Naparroan».

Bestalde, ona D. Nemesio Etxaniz'ek Z. Argian jakinarazten diguna:

«...Zoaz Donosti'ko Institutora eta Moja eta Prailleen ikastetxetara: Zer da ura...? Ango *marea beltza*... guziak erdera utsean itzegiten! Eta oietako asko ta asko euskaldunen seme-alabak dituzu!

* * *

Zeleta jauna: Problema izugarria, euskerarentzat garrantzirik aundienekoa dan problema bat begiaurrera ekarri diguzu: *Euskera erriaren ezpaiñetan... Aramaio'ko* bizilagunen *ezpaiñetan... gu denon ezpaiñetan!*

Nere iduriko, gaur euskerak beste problema eta kezka guzien *gain-gaiñetik* dagoana: *Iraupenaren problema!*

Merezi du beraz, astiro, aztertzea.

* * *

Nere oarra: Ustez onartuko dezun itxaropenarekin eta ere adixkidetasunik aundienarekin, ona nik egin nai dizudan oarra.

Euskerak duakan gaitza zuk ongi azaldu diguzu: Garbi ikusten degu Aramaio'n egin duan atzerakada tamalgarria.

Ori ongi da, baiña ezin dezakezu ortan gelditu. Konparazio batekin aisa ulertuko dezu zergatik.

Gaxo bateri sendagilleak pultsu txarra eta sukar aundia billatzen dizka; baita ere birikak odol-artuak nabaitzen ditu.

Zer egiten du sendagilleak? Leen-leenik, gaitza nundik eta nola sortu dan ikasten alegindu. Eta gero, eritasunari dagokizkion sendagaiak ezarri.

Berdin-berdiña da zuk begi aurrean ezarri diguzun euskeraren gaitza. Eta orregatik, bi galdera egingo dizkitzut:

Bata: Zergatik galdu da Aramaio'n, eta Aramaio'n bezela Euskalerriko beste erri askotan, euskera...?

Bigarren: Zer egiñ aurreranz, ori gerta ez dedin...?

Ara or, Zeleta jauna, ongi aztertzera merezi duten eta jakitera beartuak gauden bi galdera.

Zu, oker ez ba'nago, Euskalzaindiko zaitugu, beraz, beste iñork ez daukan itzala dezu galdera bieri erantzuteko.—HERNANDORENA

Agiñalde'tik *(Jarraipena)*

TXORI BATEN GOGOETAK

Bein batean, eper-aroan erriko aberats batek berakin eizatzera dei egin eban. Gaztela'ko errixka batean iru egunez yo ta ke yardun ziran, eta oi bezela gure Ogerleko leenengoa, bere zizpa erdoitsuaz ez eban utsik egin Bere laguna alan olako eiztaria izan arren, iru egunen epea igarorik, berebilla eperrez sapairaiño beteta ekarri eben.

Errira eldurik, ardandegi batean banaketa egitea erabagi eben, eta zerbait edan ondoren, arazoari ekin eutsoen. Ogerleko'k, zenbakietarako txit baldarra zanez, eiza-lagunari banaketa egiteko eskatu eutson. Onek, arazoari pozik ekin bere, ta eskuan eperrak arturik, meta bana egiten asi zan olan zenbatuten ebala:

—Bat neretzat, bat zuretzat, eta beste bat neretzat... Bat neretzat, bat zuretzat, eta beste bat neretzat... Bat neretzat, bat zuretzat, eta beste bat neretzat...

Eta olan amaitu arte banatzeari yarraikion. Ordurako, lagunaren pilloa Ogerleko'ren bikoitza zan. Gure mutillak ez eban besterik egiten, bere meta urria lagunarenakin bein eta barriz bardindu. Azkenean, burua txorkatuaz besteari esan ei eutson:

—Ñooooo...! Neronek ikusi izan ez ba'neu, ziria sartu daustazula uste izango neuke...!

Olan zan Ogerleko leenengoa. Ekintzarako gaillen, baiñan adimenez urri. Gogo-gaietan ganorabakoa ba'zan, ez dogu bere erruari egotzi bear, olan jaiota zalako baiño, ta gurasoek bere azierari egindako yaramon gitxiagaitik noski. Beste aldetik mutil ona zan, eta gero ta lanerako atxikitasun geiago erakusanez, egun batean Atxandi'n barri eraikitako metalgintzan, lanean asi zan. Bere yarduna, zeregin arrunta zan ain zuzen bere, baiñan pozik eta alik ondoen betetzen eban.

Gero, gure erriko neska batekin ezkondu zan. Arrezkero, leen baiño adore aundiagoz eiza-arraintzan yardun zan bere mozkiñak biribiltzearren.

Ugolde aundiko egun batean aingirak arrapatzen ari zala, ur-egi buztintsuan irrist egin eban eta ur orrularietan ostendu zan. Urrengo egunean, gure erritik urrun samar, ertzeko sastrapa batean bere gorputza agertu zan.

Alarguna ta urte biko semetxu bat itzi ebazan. Alargun gaixoa lanari ekin bear izan eutson, bere buruari ta seintxuari eusteko, etxe batzutan orduka yardun zalarik. Osasun gitxikoa izanik baiñan, erkitzen asi zan eta eguna gauak yarkitako ilten dan bezelaxe, bere bizitza illunabar batean itzali yakon, semetxua bost urteko aurra ozta-osta izanik.

Umezurtzak erriari ekarri eutson auzia ez zan edozelangoa. Alde batetik, Bilbo'ko umezurtegi batean sartu eikioen, baiñan erritar geieneri olakorik umearekiko saldukeri zitala eritxen. Azkenik, eztabaida luze baten ondoren, mutiltxua errian geratu edilla erabaki eben, orretarako erriaren bizkarretik ba'lin bere.

Olan ba, Ogerletxu (mutikoari esaten eutsoenez) zerbait, erritar guztien semetxua gertatu zan, aste bana erriak izendaturik etxean irauntzen ebala. Batzutan ondo yoakion, bear aiña emoten eutsoela, baiñan ondasun gitxi zan tokietan, gorriak ikusi ebazan, mutilla asko maite izaten ba'eben bere. Baiñan Ogerletxu gaixoa ez zan sabeleko gaietan zorrotza, edozein gauzaz artaratzen zala, ta gosetea etorkionean ba-zekian bere zelan antolatu. Esan bear da, mutilla beroso ona izanik, erritar guztiek asko maite izaten ebela.

AGIÑALDE'KO TXEPETXA

Ama! Ekatzu ogia ta Baserri-Chobil!

Eskatu BASERRI

CHOBIL

Txokolaterik gozoena.

Esneagaz egindakoa.

Neska lirain eta mutil gordin-bizkorrak jaten dakiena.

AROAK IGARO, ALDIA BETIKOA

Oindiño gomutan dot udabarri igaroan
orrilla, lora barrien usaiñez arrokeriz;
bitartean, nire odola pilpil biotzean
eta urruneko mendiei begira, ni pozik.

Gero argi-argitan, urrezko eguzkiaren
distiraz eta beroagaz, eldu zan udea;
-ta zer?, onek bere, lerden arroa izan arren,
laster artu eban zaartzarorako bidea.

Lerro etenbagea lez, sortu zan udazkena;
orbelak estaldu ebezan zugaztiko lurrak
eta, aize epelagaz —aizerik legorrena—,
margoak aldatu ta laburtu ziran egunak,
eta negua barriro. Alan doaz aroak!
Aldia betikoa da, aroak igeskorrak!

ELEZKANO'TAR IMANOL

Amona



Aurra mundura ekarri bakarrik ez.
Aurra jaio ta gero
gizona egin bear dogu.
Baiña gizon endekatua
ido nortasun bageko gizona
ez da gizon eldua.

Aurra gorputzez eta gogoz
osotu bear dogu.
Gorputzez ondo aztea erreza da.
Gogoz aztea ez ainbeste.
Soiñez sendo egiteko
zelako jana emon,
zelako edaria, noiz eta zelan
erreza da amarentzat.
Nortasunez azteko
zer esan, zelan esan, noiz esan,
zer agindu, zelan, noiz,
zer galazo, zelan, noiz...
ez da erreza amarentzat.

Aurraren gaurko gizartea
aita ta ama, nebarrebak
eta auzoko laguntzak dira.
Seme edo alaba bakarrak
eta ama-zuloak, geienetan
gizarte barik azi diralako
txarto aziak izaten dira.
Orreik geroko gizartean
alkartu eziñak edo txarto artuak
izango dira.

Aurrari txikitan
gizartean bizi izaten
irakatsi bear dautsagu:
laguntxoakaz laguna izaten,
olgetan lagunakaz alkartzen,
jokoan egizale izaten,
lagunakaz esker oneko eta lotsa oneko,
eta lagunai lekua izten...
Eurak gero,
geroko gizartean
berari bere lekua egingo dautse.

Ba-dakizu orain pizkat, ama,
zer esan, zer agindu, zer galazo.
Baiña egizu gozokiro, maitasunez...
eta geroko itxi barik
gaur, aurra aur dan artean.

Kirolak

ANAI ARTEKO BESARKADEA


Alkar ulertzea ta alkarreganako apaltasuna, ze gauza ederra dan danontzako! Onegaz danok kunturatzen gara, ta alkartasun au ulertzeko, balioa daukanean, erria norarte eldu ete leiken iñork bere ez daki.

Erri baten etorkizuna gaztedia da. Ta jakituna, alaia, emokorra ta baita kirolzalea da gaztedia, ta eurok izan dira euren ulertu naiagaz, gure erriko zugaitzaren adarrak indertzen asi direnak.

Egun orretan ikusi gendun San Mames'en, txartel eder bat au be gazteak egiña zan, ta onela esaten eban. «Ez aiztu zuen aurrekoak euskaldunak izan zirala...» Posgarria benetan txartel au, esan gura eder bategaz.

Jentean artean itaun asko egiten ziren ostikolariak urten aurrean, geien entzun zana: «Zergaitik ez dabe urtetan atean agertzen diran Donostiarrak?» izan zan «Ez ete dauke almenik ostiko-zelaira urten ta beti lez eskua altzateko?» Kia! Bai Gipuzkoarrak ta bai bizkaitarrak nekatuta egozan lengo ainbeste gizontasun bako ostikoketarekin, ta egun onetan anaiak besarkatu zirean, jente askoren aurrean, egikisun ederra benetan.

Tamalgarria urrutikuskiña eldu ezin izatea ango alaitasunaren barria ematera! Ta bai tamalgarria izan zan talde biok egin eben anai arteko bazkariagaz bere iñor jakitunegun ez izatea. Atleti'ko ostikolari batek onexek berbok esan eustazan, euskaraz: «Ederrak eta zoragarriak izan dira egikizun biak». Ta lerro onetan bere berbak ikusteagaz ez deitela uotsatu, emen agertzen da bere zintzotasuna ta biotz zabala.



Eurak be geure moduko gizonak dira alaiak, eta euskotarrak... zergaitik ez kirolean be gizontasun guztiagaz agertu?

Urrengo eguneko bazkarian, kanta ta barre neikoa egin gendun, ordurarteko gaitzak ta gorrotoak azturik, ta barriro be esango dot danok garala anaiak aita ta ama euskaldunen semeak, zergaitik orduan semeen artean gorrotoa ta-ikusi eziña sortu? Sarritan giroaren indarrak sortzen dau geure artean gorrotoa gorrotoa ta ikusi-eziña, batez bere kirolarien artean, baiña nik esango dot orain: Nora eldu ete leike erria zintzotasuna ta apaltasuna ikusten dabenean urkoagan.

KIROLZALE

ASTIBIA TXAPELDUN BARRIRO

Jorraillaren 25'gnean aizkolari txapelketea ospatu zan Leiza'ko erri politean, jente naikoa izan dala irakurri al izan dogu izparringietan. Baita napar guztiak itsu-itsurik egozala euren aizkolari kutunak irabaziko ebalakoan, ta ala izan be izan zan. Bere 28 urte gazteakaz, bere beso indartsuak emon eutsen txapelketa onetako saria. Merezi izan eban benetan, Leiza'ko mutil onek, ta beste barik emongo dautsuet, irakurle, bakoitzak zenbat aizkorakada emon ebazan eta igaro eban denporen barria be.

Astibia'k, 48 minuto ta 6 segundo egin ebazan, ta denpora orretan 1924 aizkorakada emon zituan. Au arin esaten dogu, baiña konturatzen ba'gara pizka bat, onetarako izardi asko bota bear dala ikusiko dogu.

Bigarren, Mikel Mindegi izan zan, Entzun dogunetik au da Astibia'ren areriorik gogorrena ta kontuan artu bear doguz bere 22 urteak, esango neuke, oraindiño gizon indarra benetan artzeko beste 5 urte bear dituala, baiña bera gaztea izan arren, ez da atzera geratzen, Berak egin eban denporea, 51 minut ta 24 segundo izan zan, ta denpora orretan 2.033 aizkorakada emon zituan, besteak baiño 109 geiago.

Irugarren, Iñaki Orbegozo, edo ezaguna dan bezela «Arriya» azpeitiarra, baiña egun onetan ez eban zorionik izan, erdi gaixorik arkitzen zan, bestela uste dogu, arerio bikaña izango zala. Onek 54 minutu ta 19 segundo bear izan zituan berea ebagiten, ta denpora onetan 2.014 aizkorakada emon zituan.

Laugarren, len txapeldun izaniko gizon ospetsu bat izan zan, emen be barriro urteak kontuan izan bear doguz; gorritiar onek 36 urte ditu ta bere izena Mikel Berekoetxea. Onek 2.354 aizkorakada emon zituan.

Au da gure aizkolarien azalpen txikerra. Au geure-geurea dogun kirola, gizon sendoentzakoa. Kirol au gure baserritarren artekoa dala esango neuke, baiña ez dira baserritarrak bakarrik ori ikustera joaten diranak, asko uritarrak dira. Kirol polita benetan, baiña bizkaitarrok ez dogu au ikusteko zoririk izaten, noz edo noz baiño, ta ziur nago au ondo artua izango litzakela bizkaitarren artean. Ea ba ikusten doguzen Bizkai'ko udaletxetakoak onetarik zerbait antolatzen. Geienetan, geure girotik kanpora eroaten gaitue beste kirol batzuek, ez orregaitik euskaldunenak ez diralako, ez, Giroa oso masifikata dogulako beste kirol geienetan, batez bere «futbol» ean, baiña orregaitik ezin dogu esan ostikoketea ez dala gurea; orra or geuretzat daukagun pelotea, ta geien erabilten dogunok geu izan arren bere, ez dakigu zigur nundikoa dan, nik neuk neuretzat daukat beintzat.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

MADARIAGA «OLSA SUAC» EKO ZUZENDARIA

Izenburu onegaz agertu zan 11 gn. zenbakian, Madariagaz izan gendun alkar-izketan onexek berbak agertu ziran: Itauna au izan zan, Bizkaiko Federasioak asko lagunduten dautsue?

—Bai zera! Geienean oztopoak ipini, euren gañetik jarri ez gaitezan edo... «Zur asko dago or be».

Ta Federazioak eskatu daben bezela, argitasun bat emotera noa, lenengo ta beiñ esan bear dot, Mikel ez dala errudun, ba txarto ulertzea neurea izan da. Parkatzeko eskatzen dautset, Mikel'eri ta bai Federazioko lendekari dan Hoyos Jaunari.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

IDAZTI BARRIAK

Izena:

Primera Semana Internacional de Antropología Vasca. Laterri-arteko lenengo euskal-antropoloji-astea.

Argitaratzaillea:

La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1971.

EUSKAL-ANTROPOLOJI ASTEAK

Antropoloji-astea bigarrenez egin danean, lenengoaren liburua agertu jaku.

Lenengo aste au igaz jorraillaren seitik amabira egin zan eta Diputaziñoko liburutegian izan ziran berbaldiak. Orduan zio berezi bat ba zan aste au eratuteko: osagille-jakintzaren akademia egin zala 75 urte bete ziran. Baiña aurten be bigarrena egin da eta aurrerantzean urtero egiteko amesa be ba dago, antza. Aste au euskaldunentzat pozgarria da, benetan. Baiña geroago ta obeto eratuko dalakoan gagoz. Eratzean Deustu'ko Irakastetxe nagusia be erkide izaten da.

Igazko aste orretan izan ziran ogei eta iru berbaldiak, osorik, dakarz liburu onek. Baita alkar-izketara bialdu ziran idatziak be. Berbaldien artean margo batzuk be sartzen ditu; Arrue, Garavilla, Myrbach, Dario de Regoyos, Zubiaurre eta beste margolari ospetsu batzuenak dira.

Lan guztiak Goti ta Iturriaga'tar Joseba Koldobika'k azkenengoz aztertuak dira. Onek eta beste osagille batzuk, baita legegizonak be, lan asko egiten dabe aste oneik eratuteko. Al dogun bestean guztiok lagundu bear dautseguela uste dot. Aste oneik ondoren oso onak ekarriko dabez gure Erriarentzat.

* * *

EGITUREA

Goti Jaunak sarrera labur bat egiten dau. Gaurko gizona zelakoa dan aztertzea osagillearentzat bearrezkoa dala diño, baiña aztertze onek alderdi asko daukazan ezkero, osagilleak ez dira naikoa berau egiteko, orregaitik eta orretarako eratzen da aste au. Izlari guztiai eta laguntzalleai eskerrak emoten dautsez.

Gero berbaldiak. Bakotxak bere arloan, izlariak oneixek dira: Jose Maria Basabe, Jose Luis Goti, Julio Caro Baroja, Jose Migel Barandiaran, Manuel Lekuona, Francisco Escudero, Adrian Celaya, Andres Eliseo de Mañaricua, Luis Mitxelena, Ignacio Barandiaran, Manuel Basas, Jose María Apellaniz, Vicente Palacio Atard, Migel A. Astiz, Leopoldo de Zugaza, Alfonso Irigoyen, Carmelo Saez de Santa Maria, Jesus Altuna, L. P. Peña Santiago, Fernando Maria Mujica, Angel Irigaray, Fermin Leizaola, Jesus Moya ta Enrique Vallespi.

Berbaldiak eta idatziak, guztiak, erderaz dagoz. Aurtengo astean «Jendaurreko elkarizketa» euskeraz egin zan. Baita izlariren batek euskera geiago bear zala be esan eban. Baiña igaz dana erdera utsean izan zan. Onetan be aurreratuko al gara.

Liburu onek, geiena beintzat, erderaz izan bear. Baiña itzaldi guztiai oiñean laburpen bat euskeraz ezarten jake. Laburpen au oso laburra izaten da, baiña, izkuntza aldetik eta laburpen lez, ondo eginda dator.

Gero beste izkuntza batzuetan be laburpenak egiten dira: gazteleraz, frances'eraz, ingeles'eraz, aleman'eraz, rusi'eraz, eta japon'eraz.

* * *

IRARKEREA

Liburua ondo irarrita dago: izkiak argi-argiak dira, bitarteetako margoak kolore ederrak dabez, azala bera be ederra da.

* * *

ERDELDUNENTZAT ETA EUSKALDUNENTZAT

Ba dira gure artean asko eta asko euskotarrak izan arren euskera ez dakienak, euskal-zaleak izan arren euskera ikasteko gogorik edo adorerik ez daukenak. Orreintzako be egokia da liburu au. Alegindu beitez, orraitiño, gure izkuntza ederra ikasten be, eta eurak ezin ba'dabe, beintzat, euren etxekoai ikasten lagundu begie.

Gure jakintza ta izaerearen barria jakin gura daben euskaldunentzat bearrezkoa ta oso onuragarria da liburu au. Lan oso sakonak daukaz. Gu euskaldunok billaketa gaietan ez gara ain sakonak izan, baiña Antropoloji-aste oneik orretarako bide izango dira.

Eta euskaldunak ez diranentzat, batez be jakintza-zaleak ba dira, liburu au onuragarri izango jake.

OLAZAR MARTIÑ'EK

BAKALLAU-ARRANTZAK

Bakallu arraiketak egiteko, guztiok dakigun lan latza dago.

Arrain oiek oso urrun daude. Urrutietako gaitza ba'litz ez da ezer, geroko ango ontzien eta gizonen iraupenak baldin oizik ez ba'leukee. Ango otzak bildurgarriak dira. Pentsa, arrantzale bat baiño geiago askotan beren beatzak zearo gogortu edo konjelatzeraiño.

San Pier de Mikelon ugartea, dakigunez, emendik urrun dago, itxas-erdin aurkiturik bera. Uri orlan daude emendik joaten diran dozenaka ontzi. Baita ere, an ebiltzen diran beste laterrietako ontziak. Guzira millaka arrantzale baturik.

Orain, ango albisteak, ordea, ez izan nai genduzan antzekoak. Ez-nai ori arraiketa gero ta gutxiago dalako. Baita ere, beste ontzi asko joaten dira Terranova inguruetara, Canada izanik beren kabia. Oraingo Canada'tarrak zigorrak jarri dituzte. Zigor oiek, lenen dira, ontzi bikoteak edo bakartuak ez uztea arrantzan egiten San Lorentzo deitzen dioten bi puntetatik barrura. Diotenez, andik ibiltzen diran bakallau-zaleak aberatsago dala alderdi ori, San Pier de Mikelon'go uraldiak baiño.

Orrek esan nai du, emendik aurrera San Lorenzo alderdietako arrantzak naiko ezbear izango dutela emengo ontzientzat.

Itxasoa, ta bertako arrantzak, gero ta zaillago aurkitzan dira. Gero ta aitzeki geiago bertan arrantzan egiteko.

Laterri bakoitzak beren uraldeak obekiago zaitu nai dituztelako, ta beste milla galerazpen diran ondabaidak.

Orain artean Canada aldeko arrantzak ez dute izan galerazpen aundirik, naiz ta gaur egunean geiago artu, ta orreixen ondorenak izango dituzte aurrerantz gure begiko diran arratzaleak.

Gaur, egun ontan, bakallaua erosteko ta jateko, esan geinke, aragia bezela, beren prezioa jeiki dala. Mokari eder ta goxoa danez, orrexen aitzakiz edo, aberatsen poltzikoak izan bearko dute ugari jan nai ba'degu...

España'tik San Pier de Mikelon'go kaira 70 ontzi joaten dira arrantzara.

Beste alderdietako ontzi guztiak baturik, 520'tik 300'era batzen dira bertan. Ontzi guzi orien arrantzaleak 15 milla dira. Alajaiñetan, ba da bakallau-zale ugarti! Esan geinke, gaur egunean kai artan España'ko ta Euskalerriko izkuntzan aoz-ao itz egiten dala, izanik bertako bizi-lagunakin alkar ulertzeko errextasun bat.

Une auetan an dauden emengo ontziak 37 bikoteak dira. Ara joanak dira ere beste 12 «bou» prantzesak, bi portuges, mexikano bat, bi rumano, abar eta abar...

Ontzi guzi oietako arrantzaleak batzen diranean, errian egundoko pestak eta beste jolasketak antolatzen dituzte: patinadoreak, hokey, desfileak, zezenketak, karrozak... trineo dalako oietan, eta ,esan bearrik ez, elizkizunak.

Gorago esaten detan bezela, bakallau arrantza gero ta okerrago dijoa. Bateko arraiak gutxitzen diralako, besteko une auetako albiste txarrak galerazitze ortan, eta oiek orrela dirala, emen Madrid'eko gobiernoko agintariak Canada'koakin elkar-izketa ta konponketak egin naian dabiltz.

Canada'ko ministroa, Mister Jack Davis, ta emengo agintariak alegiñak egiten ari dira, jarri dituzten zigorrak ezerezten. Ez dakit nola bukatuko dan konponketa ori. Jaunak nai dezala ongi izatea.

Ur aietan igaz emengo ontziak arrapatu zituzten arraitzak 300.000-350.000 tonelada izan ziran. Ikusten degunez arraitza ederra da ori. Ikusiko degu, gauzak alik eta ondoen konpontzen diran. Orren usteen daude emengo millaka arrantzaleak beren sendikoakin.

Urteak dira, bakallaua arrai onenetakuena etzala. Orduan ere, ez ziran onak txipiroiak, papalarduak, edo ta beste klase anitz. Gaur, odea, nik ez dakit zegaitik, arrai klase guztiak ontzat ditugu. Bakallau prestatuak, noski, arrairik ederretakua da, naiz ta gero, legortuta, ezberdiñago izan. Gaur, ordea, nola batera ta bestera, bi eratakoak onek dira. Orregatik jaten dira orrenbeste milla tonelada urtean.

Izan ere bai, gaur jendea obeto bizi da. Ala ikusten det nik beintzat. Ongi janaz, arrai guziak, begiratu gabe zer dan edo nolako kolore daukan, len oiñez ebiltzen ziran bezela, gaur berebilletan ebilduaz.

E. OZKIN

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

AZKUE'REN IZTEGI AUNDIA

Barriz argitaldua ale bitan. Lengoak eta 5.000 itz geiago daroaz, Azkue jaunak arrezkero batuak.

HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE BIZCAYA

E. J. de Labayru'k idatzia. Zortzi ataletan barriz argitaldua. Lengoak eta egilleak galdutzat eukazanak bere ba'dakarz.

ANNALES DEL REYNO DE NAVARRA

Zortzi aletan au. Moret eta Aleson'ek idatzitako ANNALES DEL REYNO DE NAVARRA.

CANCIONERO POPULAR VASCO

Ale bitan. Azkue jaunaren bilduma ikusgarria; gizon orren lanari eskerrak, iñoiz galduko ez diran ainbat abesti ta doñu.

REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS

Ogetabost ale. 1906'tik 1436'gn, urterarte Euskal-jakintzan gorenengo izan ziranen lan garrantzitsuak.

DICCIONARIO HISTORICO GEOGRAFICO DEL PAIS VASCO

Ale bitan, 1802'gn. urtean REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA'K argitaldua. Gaur erdi galduta dagozan izenakaz aberastuta.

NOTICIA DE LAS COSAS MEMORABLES DE GUIPUZCOA

Iru aletan barriz argitaldua au bere; Gorosabel eta Etxegaray'k egiña.

TA BESTE IDAZ-LAN GARRANTZITSUAK

Eskatu «La Gran Enciclopedia Vasca» ra.

Apartado núm. 1.510. BILBAO

AGAR'EN SEME ISMAEL

Iparragirre antzokiko bastidoreen atzean, gibelean...

Bein eta barriz...

Erdi illunpean. Argi gutxi. Ez inpernu ez zeru. Naste-borrastea, aundiegia gauza onerako. Nun nai maletak, paperak, alkiak, kutxak, ankazgora noski. Emen, toca-discos zar bat; an, jantzi biziak—arabeen antzekoak— nun nai.

Toki geltsu au alde guztietatik itxiaz, kortiña beltz-beltzak... Eskubi edo ezker aldean, ola ola, erortzeko zorian, decorado-tresneria, zintzilika...

Zurubi arrigarriak ere ikusten ditugu, gora aldera dijoaztenak (muturra austeko apartak), ta ia sapaian, naiko goian, millaka lokarri ta tresna tzarrak.

Zulo maitagarri ontan, zenbat gogorapen, alai ta tristeak! Giroa, egia esateko, ez da oso atsegiña... usaiai ere berezia da... itxi usaia, illun usaia, gauza izkutu, izugarrien usaia... ixiltasun aztunaren usaia.

Drakula'ren gazteluan ote gaude?

Baiñan, laister puskatuko da, urratuko da ixiltasun paltsu ori... antzergilleak alde batetik, jendeak bestetik, ta ara iskanbilla ta zarata, antzokiaren nagusi!

Urnieta'ko «Egi-Billa» taldeak, Agar'en Seme Ismael **antzeztuko du. Egillea, Labayen'tar Andoni.**

Abraam! Agar! Ismael! Jerusalem! Abaraam'en gora-berak bere neskame Agar, bere seme-alaba ta Ismael sasi-semearekin, gaur-gaurkoak dira.

Komeri gozo, bizkor, sakona... oso ondo emana... mami ugarizkoa. Zarrak eta gazteak, ba-dute nun ikasi... Itunzarreko erakusketak betiko dira, naiz sasi-maixu askok, Idazti Santuak baztertu naian ibilli.

Ori alde batetik... bestetik, jendea, txaloka ta parrez, parrez —geienetan, bear ez zanean— Atze-albo marrazkiak, politak...

Dena ondo atera da... beste egun batean obeto aterako da. Itxaropena dagoen artean, aurrera denok!


Ta, bukatzeko, Zorion bero-beroa, Urnietako «Egi-Billa» taldeko gazte ta zarrei!

MATXIN

ITZ-EUNDUAK

(VIII)

Etxebarria'tar Juan Angel



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Emakume izena.—B: Ezagutza egin.—D: Atzizkia (a. a.); Begia ulea.—E: Arraintza tokia; Oin-atala.—G: Izu izena; Aurrizkia.—I: Egaz (a. a.); Gaur-gerokoa.—J: Jarraigarria: Egokitasunezko (a. a.)—K: Iduria dauana.—L: Euskal basoa.

GOITIK BERA.—1: Izena (a. a.)—2: Egaz dabillena.—3: Ukapena; Lege bilduma.—4: Ogiak-eta egiteko; Ur izoztua.—5: Ego (a. a.); Jarioa.—6: Dabe (G); -eta (L).—7: Abizena; Atzizkia.—8: Erromar legegizon ospetsua.—9: Abere-piztien deadarra.

VII'ren agerpenak:

Zearretara = Gogoz.—Garagar.—Au; Urpel.—Urte; iapE.—Lau; Lei.—Kiro; Bala.—Izurde; Az.—etragoG.—aoniA.

Goitik bera = Aulki.—Guraize.—Ga; Turuta.—Orue; Orro.—Gar; Dan.—Ogei; Beg. Zapala; Oa.—repelaG.—Leiaz.

ERRIETAKO BARRIAK

Fika

Oraintze dira amabost urte jaio nazala. Fika'ko errian. Erri au txikia da baiña polita. Bertan bizi naz oraindiño ta geroago bere bertan bizi nai gura neuke. Neure kadaren gainean ibilten ikasi neuan egunean asita neure denpora guztia, erria batetik besteraiño ikusten, pasaten neban, solorik solo, mendirik mendi, beti, bere gauzarik ederrenak ezagutzen. Geroago ikastolara asteko eguna eldu zatan ta orduan asita oraindiño obeto ikusten neban zer dan erria ume batentzat, zer esan gura daben erriak norbere bizimodu ta egitadatan.

Urte onekin izan ziran neure Bilbora ta beste leku batzuetara lenengo ibillaldiak eta ikusten neban zelan neure barruak, barriro, neure errira etorteko esaten eustala. Onela pasa dira urteak eta pasa dan urterarte ez neban bertatik urten neure ikasteak aurrerantz eroateko, baiña orain ikusten dot ez dagoala bere moduko erririk, bera dala politena, bera dala garbiena bera alegriena.

Zergaitik geure barruak au esaten ete dausku? Nik uste dot gauza au bertan jaioak eta aziak izan garalako ta geure sendi edo lameli guztia bere bertan jaioa ta azia izan dalako! A, ze polit dan neure erria! Ude barrian dana lorea ikusten da bere soloetan ta lora onen erdian mota guztietako animaliak ikusten doguz. Udea igaroten dan ezkero ikusten dogu dana umea bere soloetan euren olgetak egiten eta andiagoak euren bear-taldeari itxita arbola baten menpean gerizpetan edo bere erreka ederrean euren gorputzari satisfaziño bat emoten bere ur ederrean sartutik. Uda-goiena datorrenean ikusten da dana arbola-orria bere ezkiñetan ta etse ondo guztietan eta lantzienbein ikusten dogu agurtxo bat orri onek batzean. Neguan ostera dana euria ta sarri askotan edurra ikusten dogu bere baso eta zelaietan. Au bai zoragarria! Mutillak bata-besteari edurra jaurtitzen ikusten doguz eta ez umeak bakarrik zarrak bere bardin.

Menditik berantza ikusten doguz gizonak txoriak garritik ezkegita, tiroka illik. Baiña neguari baketan itzita joango gara erriak daukan sasoirik onenera, ta au da udea. Uden ikusgarria da erria. Jentetza aundia batzen da erri onetan, eguna bertan pasateko, jatekoa bertan egiñik. Gazteak ikusten doguz mendirik berantza ouren lepoak, ondo, kargeurik egunak eta gauak bertan pasetako. Ta orrez gaiñera erri au izaten da, sarri askotan, Rally deritxon konpetiziño azken buru leku edo ikusleku. Jaiak bere erriari bizia emoten dautso, ta batez bere, erri aretan jentetza audia bertan ikusten dogunean, pozgarriz, beterik.

Bere mendietara igoten ba-dogu, ikusten dogu erria pillo baten ta bere erdian dagoan arbola-arte baterik ikusten dogu bideak dagozala bere etse guztietara, baita mendipean dagozan etse askotara bere. Arbola-arte au baiño goragio ikusten dogu eleizea bere ormak euki eziñik zarran zarragaz, ta orrez gaiñera apurtua izan zan gerra denporan. Ta bere alderdi guztietan dagozan mendiai aditzen ba-dausegue, ikusten dogu mendi zarrak dirala, bere puntak gasteurik, ta orrez gaiñera gerra denporan zulatuta ta apurtuta dagozala. Orregaitik ba arrotu egiten naz, pentsaurik neure erriak pasa ditun nekeak pasata, orain dagoan modukoa ikusirik.

Ze pozgarria dan esatea, onelako erri baten jaio ta bizi naz!

JON RIQUE MENICA
15 urte

Larrabetzu

Larrabetzu'n be zer esan ba-doguala ta, emen nago ni bertoko barriak azaltzeko prest.

Orain dirala bost bat urte edo, «Ori-Bai» deritxon gazte alkarte bat fundatu zan. Jakiña, listak danak gazteen izenekin beterik, baiña tamalez, izen utsekin ez da egundo ezer egiten, ta auxe berau jazo zan ta jazoten da gure artean: Lan egiteko bearrizana dagoanean katu bat edo bi baiño ez dira agertzen inguruetatik.

Mendira urteerak egiten bero asi giñan, geu geure artean geiago ezagutzeko asmoekin egiñik. Alkarte ontan umeak bere ez dira aiztute itxiten: Txistuko klaseak emoten jakez, eurekaz mendira urten bere bai. Kili-kili'ko lanetan laguntzen jake. Indar barri au ez dago galtzen itxiterik!

Euskeraren arloari garrantzi aundia emoten jako, olan ba zeozer egin nairik ba-gabiltzaz. Gure neskok be bizkortzen ez ba'doguz, argiak gagoz; ia ba neskaixuak, euskeraz egiten dogun guztiok! Eta zuok mutillok, zuok bere ez lorik egin, gero!

Gurasoekin artu-emona euki nai dogu, baiña goazen martxan ez dago ezer lortzerik. Danok aalegindu bear! Oraintsun «Ori-Bai» barruan ideoloji diferentziakaitik, talde bi sortu dira.

AGUR albistariaren ganera neure eritxia adierazten noatzue: Gai sakonagoak ta obeagoak argitaratu bear dirala nik uste, orrezaz gaiñera, nire ustez, kritikatu bakarrik ez da egin bear besteen lana, baita soluziñoa erakutsi ere bai.

AKARRA

Zollo

Eriotza bat beti da samingarria ta au...! Ezbear izugarri baten bidez il zan, joan dan Jorrailleko 14'gn, ogeitamazortzi urtedun zala, Uriondo'tar Kolestin euskeltzale jatorra. Gazte kementsua bera, gitxi-gitxi lakoa, euskotarra, Ugao'ko «Etorki» dantza taldearen sortzaillea ta bertako lenengo Lendakaria. Azkarra ta alaia zan bere izakera, egikera ta eskintzan, bere indar eta neke guztiak Erriaganako maitasunagaitik egiten ebazan, maite ebalako Euskalerria, ta era guztietara aldeztuten alegindu zan azkenengo arnasara arte; beraz, seme zintzo bat galdu dau gure Erriak, iñoiz baiño bearrago genduanean bere eskeintza, baiña geuok eutsiko dautsagu bere irakatsiak eredutzat artuaz, goigogaiak.



Il orren 16'gn ospatu ziran Kolestin'en aldeko illetak, ostetza ikaragarria bertaratu zan, txadon eta inguru guztiak bete-bete egiñaz, geiena gaztedia, ta zelan ez! bertan izan zan «Etorki» taldea be, euren dantza-jantzi ta guzti apaindu-ta. Benetan, an ikusi zan zein maite izan daben Zollo'n, Ugao'n eta inguruetan, bera ezagutu eben guztiak.

Illetak amaituaz batera, ildegira joan giñan guztiok, malkoz beterik begiak, azkenengo agurra egiten aberkide maitagarriari.

Illaren 25'n, olata-mezea ospatu zan, eleizan bertan aurresku bat dantzatu eben ildako adizkidearen azken omenez, eta jaupa ondoren «Agur Jaunak» abesti txukuna gogoz abestu zan.

Gure lerro onen eta, Kolestin'ek berak atsegiñez irakurten eban AGUR'en bitartez, agur-samin maitekor bat bialtzen dautsegu bere sendikideai; gure irakurleai otoi bero bat eskatuten dautsegun bitartean euskeltzale zintzoaren gogo-alde. G. B.

Gero arte aberkide maitea!

Zollo, Kamaraka, Ganekogorta, Pagasarri ta Uzkorta-Pastorekorta mendi erpiñak ingurututa aurkitzen dan erri baketsu euskeltzale eguzkitsua ta alaia, basetxe eder zuriz apainduta dagoana, biztalez txikia da, baiña euskal ziñiskeraz andia, ta orregaitik urten dabe bertatik Iriondo'tar Kolestin lako gazte zintzoak... ta ezta bera bakarrik izango, ez orixe!

KOLDO

Galdakano

Bazkunen eginkizunak

Ogeiren bat mendizale-bazkun izango dira Bizkaia'n, Eusko-Mendigoizale Batzaren barruan aurkitzen diranak eta, euron artean, Galdakano'ko Ganguren, lau edo bost bazkun zendoenetarikoa. Ba ditu talde onek eginkizun onak egiñak: Gorbea'ko Arraba'n aterpe ederra, eta errian, bazkideen laguntzaz, eta txindiz egiña, batzartoki aretoa, zaar ta gazte, emakumezko ta gizonezkoz sarritan beteten diranak, baiña ez da orrekin bakarrik euren mendizaletasun egarria asetuten eta, adoretsu ikusten dugu batzordea mendizaletasuna ugaritu eta bide onetik eroateko asmoz. Ori ikusirik, zerbait geiago jakin gurean, eurakana zuzendu gara. Lendakari, bigarren lendakari eta idazkariari itaun batzuk egiñez.

* * *

—Ganguren mendigoizale-taldeak ainbat bazkide daukazala ba dakit, baiña zenbat inguru dira bazkide mordo guzti orretatik mendira dabiltzanak?

—Eun eta berrogei eta amar edo irurogeiren bat edo geiago bai. Igandero berebil aundi bat edo bi be bai, ta gero banaka, taldeka ta abar dabiltzanak.

* * *

—Igaro zan urtean, eta aurten be ia igande guztietan zabiltze jende-berebil aundi orreikin. Ziur zagoze ibilkera ori onurakorra dala ta?

—Ezetariko zalantza barik.

* * *

—Zergaitik?

—Ara, oraindik asko dira euren berebillik ez dabenak eta orreik, jente-berebil-bitartez osterantzean joango ez litzakezan alderdi askotara joaten diralako, alkarregaz batera, eta berebilla dauken asko be bai, orretara alkar obeto ezagutuaz adiskidetasuna ta zaletasuna sortzen diralako, alderdi ikusgarriak ezagutuaz.

* * *

—Zabiltzen mendi ta inguruak ezagutzeko, mendigoizale gazteen artean, zaletasunik ikusten dozue?

—Geien batzuk bai, gure lurraldeak ezagutzeko zaletasuna ba dabe.

* * *

—Orretarako, mendi egokiak eta jakingarri diran alderdiak aukeratuten dozuez?

—Bai. Zuk ba dakizu orretan alegindu-ten garana, naiz ta beti guztien atsegin izan ez. Ori dala bide ainbat toki bikain ikusi doguz azken aldian, Bizkai ta Euskalerritik zear.

* * *

—Urren, gazteentzat bakarriko ibilketa neurtu bat, orril onetarako, eralduteko zareela, emen batzar-toki onetan entzun dot. Zergaitik gazteentzat bakarrik?

—Bai, egia da. Illa onen ogeita irurako ibilketa neurtu bat gertatuten gabiltz. Amar urtetik 18 urterako Bizkai'ko gazteentzat, beti batera jaiak eralduten doguzan Padura, Baskonia, Edesa, Osea ta gu batera. Gazteentzat bakarrik ipiñi nai dogu, eurak euretara, iñoren laguntza barik, mendian ibilten eta bear diran gauzak egiten ikasi dagien.

* * *

—Entzun dot, baita, beste zerbait be. Bagillaren ogeta seitik asita, gaztetxu orreintzat oial-txabolatza (campamento) bat gertatuteko zabiltzela Ganguren'ekoak. Nun, nortzukaz eta zertarako da mendiko oial-txabolatza ori?

—Ara, dendaketa orretarako aukeratu dugun tokia Dima'ko Baltzola-goiena izan da, eta bera gertatuten lagunduko dauskuenak Bizkai'ko «boys scouts» gazteak, orretara oituta dagozalako. Bertan gai oneixek irakasten aleginduko gara: gazteak, batak bestea ezagutuaz, alkar lotsa izaten; landarizki (botánica) pizka bat ezagutuazoten; itzaldi batzuk bide dirala, bearrezko beste arazo batzuk irakasten; eta, bai, alderdi areitan aurkitzen diran atx-zulo ta ikusgarriak erakusten be; ta abar... Irakatsi leuskeegun guztia, egun bi edo iruan, euren begien aurrean jarriko dautsegu.

* * *

—Orreik zuen asmoak ba'dira, ondo aurkitzen doguz eta ainbat obeto bertoko semeak diran ezkero gazte orreik, eusko-giroan ba'dira, izan bear daben lez. Azkenez, beste zerbait AGUR amobosteroko izparringiaren irakurleentzat?

—Gure eskerrak eurai, mendigoizale gaiak begirune onez artu dabezalako, eta Galdakano'ko eta inguruetako gazteai dei maitakor bat: danon arte, orain arte Bizkaia'n iñoiz ospatu ez dalako mendizale gazteen oial-txabolatza bikain bat egiteko Ganguren'en inguruan batu daitezala.

ALTUNA'TAR YOSU

Bilbao

Etorkizunakin aurrez-aur

Orain ille batzuk onetzaz zertxobait esan baineutsuen bere, gure gizaldiaren aurrerapenari jarraituz barriren barri ta laburkiro bada be mintzatu bear dautsuedala deritxat, gure Bizkai lurraldean aurrerapidearen oztopo ta argibideak itsumustuan ta erreskadan bai-datoz etorri, erdi-bidean korapillotu oi dira ta azkenik euren askatze ta erabaki bidea argitsuago begiztatu geinkelakoan nago-ta.

Lenen bein gure egazkin-landa barriatzaz —Sondikan datzana aurrerantzean txikiegia izango dan ezkeroz— jardun bidea dakartsuet.

Urrats (pausu) lenenak aizatu ei dira ta poliki aizatu be egiz.

Zailtasunez beteriko arazo oneri zuzenbidea emoteko ipar-ameriketar, inglestar, prantzezak ta baita espaiñar baltzu-elkargoak ere batu dira. Une ontan bi dira elkargo garailleak. Bata, Harris-Bosch Aimerich, kanpotar izenaz baiña espaiñarra bera ta Dixon Speds izentaturiko baltzuagaz baturikoa. Bestea ostera Aeroport de Paris ta Kaltenika deituriko elkargoa.

Orain, baltzu bi oneik lanari buru-belarri loturik jardun bearko dabe.

Auzi-eztabaidak luze-gogorrak izango diran itxura dogu, ots, lur, lauen urritasuna, mendi tarteko bitarte estuak ta beste muetako eragozpenak gure Bizkai ain ugariak izanik, toki egokiagoak, euskal-erritik kanpo izan leitekezanak eurak —alan be Bilbo'tik urrunegikoak ez beiñik-bein— idoro bearra izango dabe-ta, jakitunen iritziz.

Au asiera bakarrik ei da Udazkenerako xeetasun oneri baietza emon bearko iako, ta baikortasuna galdu barik, bai-leiteke egazkin-landa arazo oneik euren bidetik artez joatekotan, datorren urteko udabarrirako lanen asiera ikustea.

Itxaron bearra dogu ba ordurarte.

Bizkai'ko Lantegi-Abagunea

Bizkai'ko lantegi-biziera ez da aspaldidanik bikaiñ-bikaiña. Ez da abagune onen amaiera be garbi ikusten. Batzuk udazkenerako luzatuko dala diñoe. Salerosketak asko be asko urritu dira, langilleak ba irabazte gaiñerakoak ezpadabez ezin leikee guraiñ dendetan txanponak eurrez itxi.

Gure errian lantegi-langilleak ugariak diran ezkeroz salerosketa guztiak nabaitu or dabe saltzeen urritasuna. Erri-Ekonomia dan danok eragin bear dogun txirrinkola bat lez da-ta.

Euskal-meza

Bilbo'ko Koliseo-Albian izan gendun Euskal-Meza biribilla benetan urten jakun. Euskal-eresi tresna guztiak erabilli ziran, danak baiña euren neurrian. Zati bakoitzaren amaieran emoniko txaloak, txalo bero, gogoragarriak izan ziran.

Txalo, gogaldi, euskal giro benetakoa izan gendun. Zio-zergaiti bigaitik nere ustez. Lenena: Euskal-Meza bera, guretzako ez eze, baita kanpotar entzule geienentzako ere erti-lan berezia, apartekoa dalako. Bigarrena: Goizaldiko egitarauaren azkenengo zatia debekatu ebelako. Ori ta guzti gizostea an geratu zan, ta pozik geratu be, Goizaldiko mai-azkena, postrea kendu euskuen, baiña Euskal-Meza oturuntza obeto txestatu gendun orrela, bertaratu giñan askoren iritziz beintzat.

Ez-ete zan ori debekatzaillearen asmoa izango? Libre da bakoitza aulako asmakizunak egiteko. Geure barruaren jabe bakarra Jauna dan ezkeroz. Berak guztioi Berpiztegun ezin obeak emon daiskuzala, baita gure Euskereari bere.

ARREGI'TAR JOSU

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tendería, 15 eta 16

Boutique
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak

EUSKAL ANTROPOLOJI ASTEA

Gizonen egiñak iñoz be ez dira oso-osoak. An dabez euren alderdi onak eta txarrak. Ori esan bear antropoloji-astea aztertukeran be. Baiña osoan kontuan artu ezkero eta eretxi oso bat emon bearra ba'da, Antropoloji-astea ona ta goragarria izan da. Ori ta guzti be, aztertze benetako batek urrengorako astea obeto eratuteko lagundu leikelakoan, idatziko dot. Ezelanbe ez iñori min emoteko ustez.

* * *

Lenengo egunean, astelenean, berbaldi bi izan ziran.

M. Jean Haritschelhar'ek, Baiona'ko euskal-erakustokiko, museuko, zuzendaria da berau, berba egin eban. Bere gaia: maite-irudiak: andra maitatuaren irudiak Euskalerriko erri-abestietan. **Amaiera labur bat euskeraz, gaia bera erderaz, gaztelaraz egin eban. Detchepare'n esaldi gordin batzuk ekarri zituan, gero IZAR edo maite lortu eziña, LILI (LORE) edo maite lortu al dana, URSO edo USO batez be egapeko lumea azaldurik eta USAPAL edo maite lortua.**

Berbaldi ederra, benetan, eta zer ikasi askokoa. Azalerea oso argia eta ondo egiña. Benetan txalogarria.

Luis LAZARO URIARTE Irakasleak, Deustu'ko Irakastetxe Nagusiko irakaslea berau, egin eban bigarren berbaldia. Gaia: Arteta euskal eta Eiropa'tar margolaria. **Berbaldi gogaikarria eta bear dan lako egitura bakoa. Nekatu egin ginduzan.**

* * *

Bigarren egunean, asteartean, «Jendaurreko elkerizketa». Gaia. «Euskerearen irakaspidea eta euskerea irakaspide».

Paraninfoa bete-beterik egoan. Geienak euskal-zaleak, jakiña, baiña ez, bear ba'da, euskaldunak. Antxe egon ziran, orraitiño, iru orduan.

Elkar-izketa onetan gauza bik mindu ninduen. Aita Mokoroa'ri egin jakon arrera txarrak eta izlari batzuk erabilli eben euskera baragarriak.

Xabier Kintana'k, gaitik kanpora, eratzeilleai oar batzuk egin eutsezan: zergaitik andereñorik ez? Zergaitik maian baste batzuk ez?... Adrian Zelaiak erantzun eutsan.

Gaiari buruz, eretxi bi oso argi agertu ziran, baiña benetako alkar-izketa ez zan egin, bakotxak berea esan baiño. Ori alkarren aurka berotu ez egiteko bide bat ba zan, baiña ez argitasunerako ta batasunerako.

Dana dala, euskerearen kondairan egun aundi bat izan zala esan bear.

* * *

Irugarren egunean, eguastenean, beste berbaldi bi.

A. Maria Arrazola'k, kondairazalea ta lekaimea berau, berba egin eban. Gaia: Amaseigarren gizaldiko irudigiñak Euskalerrian. **Oso ederto azaldu eban nortzuk eta zelakoak ziran gure irudigiñak, baiña guztiak erdeldunakaz nastatuak eta eurakandik ikasiak. Lan-eder-zale euskaldunak, erritarrak, ez ziran agertu. Ba leiteke gure «santugiñak» arte-liburuetan ez agertzea. Baiña Lekaime onen gogoramena iñorena ez lakoa da. Irakastaldi ederra emon euskun. Zorionekuak bere ikasle diranak.**



Gero Francisco Escudero'k egin eban berba eta Donostiako eres-talde on batek lagundu eutsan. Gaia: Txistua ta txilibitua. **Ereskin onein almenak oso ederto agertu euskuzan eta eres-taldeak be ondo lagundu eutsan. Eres barri bat aterateko bide ziurrak daukas kuez ereskin oneik.**

* * *

Laugarren egunean, eguenean, beste «Jendaurreko elkar-izketa» bat. Gaia: Euskal-Naparren etxe-eskubide eta legedia. **Ondo artu genduan, baiña legeetan aituak ez gara.**

* * *

Bostgarren agunean, barikuan, Berbaldi bi. Lenengoa Jesus Dorao lege-zaleak. Gaia: Bizkai'aren gerorako diru-arazoa. **Arazo sakona dala esan eban. Iru baldintza: kaia, egazkin zelaia ta lantegiak. Iru bektore kontuan artu bear dirala esan eban: Ibero-ibaira, Gaztelara ta Santander'era. Txalo batzuk entzun zituan, baiña baita oiñ-otsak be gogoa adierazteko, batez be gazteen aldetik. Irakurleak adituko dau zergaitik izan eitekean.**

Bigarren berbaldia Jose Miguel Azarola lege-zalearena. Gaia: Euskal-jakintza ta gaurko gizadia. **Onetan ere txi ezbardiñak izan arren, irakasia erdeldunai eskerrak emon bearreko gagozala esan eban, eurak gure jakintza egitean erdikide izan diran ezkero. Euskaldunak berbaz laburrak dirala be esan eban, eta orregaitik Oñati'ko ikastetxe nagusia ta Bergara'ko irakasleku galdu zirala, baiña gaur Euskalerrian gorengo maillako iru irakastetxe dirala. Españagaz jakintza batasuna egitera egoan eta gure izkuntza, Espaiñaren aberastasuna lez, zaintzera. Gure uri-burua Bilbo izan ete leteken be aitatu eban. Gure kondaira idatzi barik egoan esan eban. Txalo batzuk eta oiñ-ots asko entzun zituan. Irukurleak adituko dau zergaitik izan eitekean.**

* * *

Seigarren egunean, larunbatean, lenengo, goizean idatziak irakurri ziran. Gauza ederrak. Ez jat ain arin aiztuko, aita Urrutia'k euskerea ta Espaiña'ko legeak dirala ta, esa ebana.

Gero, Julio de Urquijo'ren eungarren urtea dala ta berbaldi bi. Juan R. de Urquijo bere lobearena bat eta gure Manuel Lekuona'rena bestea. Politak biak. Lekuona'k euskeraz asi, erderaz jarraitu eta euskeraz amaitu egin eban.

Arratsaldean Alkar-izketa bat izan ei zan. Gai: Euskalerria erromatzea.

* * *

Kintana'k bere itzaldian esan ebana ontzat artzea dot. Aste onek euskal kutsu geiago bear leukela. Igaz baiño asko geiago izan dau, baiña beste oinkada bat emon bear da oindiño eta euskerea geiago edo dana sartu bear da.

Baiña al danean al dana. Eratzailleai zorionak eta eskerrik beroenak emon bearreko gagozala uste dot. Jarraitu daiela aste oneik. Obetu daitezala aste oneik.

GAMIZ

BATASUN BIDEARI BURUZ, ZERBAIT...

Ez dakit, gaur, batasunari buruz, «mai biribillik» egin bear litzaken. Mai onetan gure iritzia eskatzen da zera jakiteko: euskera batua bearrezkoa ba'da zelan lortu bear dogun.

Baiña jardun oneitan asi baiño len or zear argitaratu dira zenbait gura idazti, idaz lan eta abar, euskera batu baten idatzita dagozala adierazoten dauskuezenak. Beste alde batetik, nere uste apalean, entzuleak, beste iritzi bat aterako leukie, bear bada, mai au osotzen dabenak beste batzuk balitzakez. Edozeiñek daki, zenbat gura tokitan esan eta idatzi dabe ta, gure maiko Lendakari Jauna ta Moderadore Jauna bera ere, batasun bideetan alde batekoak dirala. Geiago esango neuke, garratz eta gordin azaldu nai ez arren, mai ontako aukeratzea egin dan neurri berean, aukeratzen dirala Euskaltzaindian ordezkaritza geienak. Jakiña, bertsolarien txapelketakoa ta olakoak ez, baiña bai garrantzidun «bulego» edo danadalakoak.

Antropologia II Aste onetako itaunketa guztiz interesgarria da euskeraren etorkizunerako. Baiña zergaitik euskaltzain bakoitzari ez dautso Euskaltzaindiak iritzia eskatu? Ez batzar batekoa, iritzi idatzia, banan-banangoa izan bearko leuke itaunketa orrek. Orrela Euskaltzaindiaren buru diranak jakintsu apal askoren esan-bearrak irakurriko leukiez.

Ori izango litzake euskaltzain geientzuen iritzia ta ez gaur egiten dan bezela, goitik-beera sartu arauak. Gaur, agintaritzan dagozan jaunak izango dira erriaren aurrean, zorionerako edo zoritxarrerako, abiada itzelean egiten dan batasunaren erantzuleak. Botodunek gitxi dira baiña euren lepo-gaiñ izango da errua edo goralpena. Au argi ta garbi geratu bei Erriaren aurrean, Euskal Erriaren aurrean.

Len emondako erantzunetan, uste dot azaldu dodala nere iritzi apala, apala bai, ez naz izkuntzalaria-ta, baiña eskubideko, erri onetako semea, euskalduna, euskera ezagutzen, lantzen eta maitatzen dodana.

Jomugatzat, batasuna artzearen alde naiz baiña literatura maillan, patxadaz, eta ez abiadan egiteko batasunaren aldeko.

Patxadaz eta ez presaka esan dot: nik ez dot uste euskera batuak izkuntzea gaizkatuko dauanik, salbauko ba'da, ta gitxiago euskalkiak ilko dabenik il zorian ba'dago. Nere ustez gaur premiazko dogun lelen-lelengoa, erria, euskeraz egiten dauan erria eskolatu, dana ezin ba'da, bai zati bat, ernegai izango dana. Ez dot beste biderik ikusten.

Euskal-Erriko gaurko gizartean, ekonomia ta kultura aldetik dituan estrukturarekin, ofizial agertzen dan izkuntza gaztelarragaz ganetik daukagu; bere eskuetan zabalkunderako tramankulu guztiak ditu, izparringi, telebisio, irrati ta mailla guztietako irakaskintza, izkuntza orretan egiteko beartuta alde batetik; eta bestetik, erbestetik etorri diran gizasemeak, beste kultura baten eziak eta gurea ezagutzen ez dabenak eunetik erdia dira. Jatorriz emengoak bere euskaldunak ez asko.

Ori orrela dalarik, euskalkiak itota ilten ba'dira, euskal auzoak galtzen ba'dira gero eziñekoa deritxot berbizteari, euskera batu baten indar berritzeari.

Euskera batua gaur «mito» bat egin da ta gu lurrun artean sartuta gagoz; batzuk alde, beste batzuk aurka. Baiña ez da batu ori euskera idatzirako bakarrik erabilten, gaur euskera batu edo dana dalako orretan itzegiten alegintzen dira norbaitzuk. Euskeraren batasuneruntz jo bai, baiña zelan? Beste erri batzueri begiratu ezkero, jatorriz izkuntza bardiñeko izan diran errian batasunari begiratu ezkero, gauza bat ikusiko dogu nai ta nai ez. Ezin leikela izkuntza bat gogorkeriz errian sartu-erazi, naiz ta guk baiño eskubide ugariagoren jaube izan. Gauza bat da erriari batasun bidean laguntzea ta beste bat, nai ta nai ez gogoaren aurka goitik beera sartzea.

Erri xearen artean egin dodazan azterketetan, erri eskolatuan jakiña, askoz obeto ulertzen izan ditue beste euskalkiak, euskera batutzat eskeiñi dauskuena baiño. Nere usteko diranak, euskera idatziaren batasunerako ekitaldietan egiteko bidea eskeintzen eta eskatzen dogu, irakaskintzagaz batera eroan leitekezan ekitaldietan; au da, ikastoletan eta lelengo urteetan norberaren euskalkian, etxean eta auzoan erabilliko daben euskalkian, gure erantzunetan len esan doguzan arrazoiak bitarteko arturik; urrengo maillan edo urrengo urteetan beste euskalkietako aldaketa garrantzitsuenak, eta azkenez euskera batu bat. Orrela jokaturik sikoloji ta pedagogiaren aldeko lana egingo genduke, euskalkiak bizirik gordeko gendukez eta euskera idatzia ta oguzten dogun euskera ez litzakez guztiz ezbardiñak izango: au da lortu bear dogun elburua.

Irakaskintza au aurrera eroateko textoak era batera aukeratu ta argitaratu libearko litzakez, ba, ikusi dogunez, bear dan bezela legeak betetzen ba'dira, bear diran ediziñoak ez dabe ain garesti urtengo. Gaur zenbat gura idazti argitaratzen dira euskera batu dalako orretan, argitaratu ta saldu aurki... baiña irakurri?

Zelan egiten dira batasun ori lortzeko izketa ta ortografiako arauak, ez baditu Euskaltzaindiak onartu? Euskereagaz, izkuntza bezela, zer ikusirik ez daukezan arrazoiak bitarteko dirala, bear ba'da, baiña ez goaz gu, emen ori aztertzen.

Lenagoko Euskaltzainburu zan On Manuel Lekuona'k epea eskatzen eban, katalanak amar urte izan zituala esanez, baiña aldatu eben, ostopo bat kentzeko, ta abiada-asko batasuna ekarteko...

Asieran bezela amaitzera noa; etorkizunean jazoko diran gora-beera guztien erantzuleak, naiz ongarri naiz kaltegarri izan, gaurko Euskaltzaindiko maiburuak izango dira.

II ASTEKO TXOSTEN BAT

AZTERKETA BAT

Goragarriak, benetan, Aste onen antolatzailleak. Zenbat lan eta zenbat ukamen gaiñeztu bear izan dituen iñork ez daki ta!

Ni, bigarren egunari buruz, zerbait esaten noa, izkuntza-egunari buruz.

Nitzat egun edo jardun-aldi orrek zati bi izan zituan: Unibersidadean egin gendun «mai biribillekoa» ta Bilbaina-alkartean izan gendun mai-ondokoa.

Unibersidadean zenbat gura ikusle ta entzule izan genduzan. Labur-labur adierazoko dot ba nere buru-azterketa; bakoitzak egingo eban berea ta.

Eratzailleen asmoa: ezin obea, gaur bero-bero dagoan gaia aukeratu eben, iritziak entzun eta alkartzeko asmoz, aurki.

Itaunak: Esan dogun lez, garrantzi aundikoak: baiña beste toki baten azaltzen dogun lez, alperrikoak, batzuk «batua» lortu dabe ta.

Aukeratzea: Mai biribil onetan nortzuk giñan ikusi zenduen. Gitxi gorabera, ba dakizue bakoitzaren iritzia. Orrela ez dago jakin-erazi bearrik. Aukeratzailleak berari komeni zaiona egin zuela. Bada-ezbada, entzulearen aurrera alde batekoak, edo gitxienez, antzeko geiago ekarri. Orrela erriak geiago dirala uste izan dagian.

Giroa: Maikoen artean demagoji larregi, itaunketatik kanpora. Beste batzuk bear ei-ziran an (oraindik geiago?), gu alperrik dirudiñez. «Batua» eginda ei-dago... danok bertara makurtu bear ei-dogu. Iñun eta iñoiz ez da abiada aundiagoan ezer «batu». Paperean, jakiña! Orain erriaren erantzunari itxaron bearko.

Entzuleen giroa: Ederra ta pozgarria benetan tokia gaiñezke ikustea ta entzuleen artean gazte asko ikustea. Pozgarriago gaiñera eunetik larogeik gitxi edo ezer ulertu ez arren an jarraitzea, onek zaletasuna agertzen dau ta.

Moderadorea: Aukeratzea zelakoa izan zan esan dogu. Orrez gaiñera, Aita Mokoroa ixildu egin eban; ba dakigu luzeegia zana erantzuna, baiña luzeagoak eta gaitik kanporakoak be entzun genduzan. **Jakintza ixildu eben erriagandik estaltzeko.**

Maiburua: Ba nekian Aita Villasante'rentzat batasuna eginda egoala. Orretarako ederto aukeratzen ditu Euskaltzaindian «bulegoak». Euskaltzain apal eta jakintsu (ni ez) askoren iritzirik eskatu... ez. Bertsolarien txapelketarako-edo bai, baiña «berak nai dauen batu orretan arri-koxkorrik ipiñi al izango dauanik ,ez».

Euskerea: Ona emen «batu» dalako orren adibidetzat zerbait: «momentu konkretu onetan aktualizatu ta normalizatu bear dugu errealitatea» Amen! Baiña guk ez dogu izkuntza ondatze ori iñoiz onartuko, ta, gitxi gora-bera, olako asko entzun gendun an.

Ez goaz «mai biribillari» buruz besterik esaten.

BILBAINA'KO APARI-ONDOA

Guztiz garrantzitsua, nitzat beintzat. Prejuizio guztiak (sentitzen ba'doguz) alde batera itzita. An sartu gintzazan, Villasante ta Mokoroa izan ezik, beste guztiok. Nere ustez, orma areik euskera apurtxo bat entzun egien edo... an giñan danok, agirian asarre barik.

Gauza asko entzun nituan eta batez ere Unamuno'tzakoak. Pozgarria izan zan niretzat gure jakitun trebea biotzez euskalduna zala jakitea. Urzelai, margolari ospetsuak, bere jardun atsegiñaren bidez, asko irakatsi euskun, baita jazoera bikaiñak azaldu ere. Unamuno, bakarrean, euskaldun sentitzen zan, baiña unibersalismoaren «lurrunak», inguruan eukazanen «koipekeriak», askotan, itsutu ei eben gure gizon famatua.

Au entzukeran, Mitxelena Jaunari ere beste orrenbeste jazoko ez ete jakon bildur naiz. Ez dot mindu nai, ez naiz iñor bere jakintza ukatzeko ta; gaiñera gure izkuntza arloan borondate onez jokatzen dauala uste dot: buruz-buru gitxitan itz egin dot beragaz eta ez dot ezagutzen, baiña bai aintzat artzen. Au esan ondoren nere asmoa azaldu neike: Mitxelena'k bide bat artu dau, ori jakiña da. Bide oneten jarraitzaille talde bi ditu, «lurrun» zabaltzailleak, «botafumeiro» erabilten dabenak. Talde bata bere jakiturian oiñarritu ta beragan izkuntzaren etorkizuna itzi nai dabenak. Onekin bat ez natorren arren, txalogarriak dira nitzat. Bestea, Mitxelena Jauna «ikurrintzat» artu dauana. Eurak nai dabena egiten dabe eta gero Mitxelena'ri izenpetu eragin: «Lurruna»; ez ete dau lurrunak gure Mitxelena itsutuko?

Erriaren aurrean bere izena darabille ara ta ona, baiña erriak beste jakitun asko ezagutu bear ditu, euskera arloan, ez izkuntzen arloan bear ba'da, arek beste dakitenak: Akesolo, Onaindia, Lekuona, Laffite ta beste asko ta asko. Ez noa izen geiago emoten; batzuk apaltasunean minduko neukez eta... baiña bai bat: Aita Justo Mokoroa. Zer esan bear ete eban Aita Justo'k? Unibersidadean ez zenduen entzun, baiña jakingo dozue. Mokoroa izan da, ta da, askoren irakasle, berak beste euskera gitxik dakite eta azkenerako itzi dot zera esatea: Mitxelena Jaunak berak, Bilbaina'n aitortu ebana, Mokoroa izan zala bere gidari, bere espaiñetatik jakin eban lenengoz Axular'en barria ta.

Bai, Unibersidadean jakintza ixildu eben, baiña jakintza illezkorra da ta Aita Mokoroa gure artean dagon artean eredu ona izango dogu. Giroa aldatu dala «Genio y Lengua» idatzi ebanetik? Laister ikusiko dogu zeiñena dan arrazoia.

Eta ondo esanak, onartu; gaizki esanak, parkatu!

ARENAZA'TAR JOSU

AGVR

II URTEA
14 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - ORRILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

JAI EGIN

Gizonaren egunik geienak astunak dira. Lenago, gaur baiño gitxiago izadia uzpiratuta egoanean, lanak, eta lan gogorrak, gizonari nekeak ezarten eutsazanean, gizona morroitza garratzean bizi zan. Gaur izadia menperatuez doa eta bere bizitzea erreztuez. Baiña, gizonaren ingurua geiago edo gitxiago negar-erri bat da.

Orregaitik, gizona, len eta orain, atseden billa dabil, poz apur bat nai dau. Alde batetik, lana azpiratuteko, lan orduak gitxitu egiten ditu: antxiña amabi ordu, gero amar, gero zortzi, gitxiago al ba'da. Bestetik lanari egunak kentzen dautsoz: sei egunean bear egingo dozu eta zazpigarrenean atsedena artuko dozu... Gero jaiak, oporaldiak, ibilketak...

Ona emen zergaitik jai egitea gizonarentzat pozgarria ta bearrezkoa dan.

Izadiak eta gizonak daroen bidea ikusirik, lana gitxituez eta jai-aldiak geituezjoango dirala ba-dakigu. Laterri aurreratuak begiratutea baiño ez da bear au igarteko. Eta gizonak lana gitxitzeak izten dautsazan orduak bete bearko ditu edo egun gogaikarriak igaro bearko ditu. Kirolak eta jaiak, eder-lanak eta irakurteak geroago ta indar geiago artuko dabe.

* * *

Neurria bear dan lez artu ezik, jaiak ba dauke, baita, arriskua be.

Antxiñako erromatarrak jai egitekoa baiño beste amesik ez eben: Ondo jan eta ondo jolastu. Eta lan egiteko morroiak bear, beste gizon batzuk menperatu bear, saldu eta erosi egiteraiño menperatu be.

Lana izten dauan erria, bear dan baiño geiago jai egiten dauan erria, akatsez eta okerkeriz beteten da, bere egiteetan sakontasuna galtzen dau, bide okerrak artzen ditu. Ta, azkenez, Erroma aundia jausi zan lez, jausi egiten da.

Jai egiteak, bearrezkoa izan arren, bere neurria dauka ba. Ez gizaldi guztietan eta erri guztietan neurri bardiña, baiña beti neurri bat.

* * *

Baiña jai egite au, beste alderdi batetik begiratu ezkero, erri-bizitza erakusteko bidea da. Jai oneitan agertuko dira, batez be, abestiak, dantzak, oiturak... eta erri bakotxak bereak. Orrexegaitik ain atsegin izaten jakuz euskal-jaiak: an gure erriaren bizitzea agertzen dalako.

Jai egiteko, kanta eta dantza egiteko, baiño negar egiteko zio geiago dogula diñoenak ba dira. Eta gure Erriaren egoerea ikusirik, ori ezin ukatu. Baiña kanta eta dantza egitea be Erria otseintzea da, Erriari bizia emotea da. Ituntasunpean beti egotea eriotzarako bidea izan leiteke. Geure barrutik indarra, adorea ta kemena atera bear doguz eta «erbestean Erriko abestiak abestu».

Eta onetan be aurrera egin dogu. Eragozpen aundiak aurrez izan arren, euskal-jaiak geroago ta ugariagoak dira, geroago ta ederragoak agertzen jakuz, bai eder-lanez, baita Erri-zaletasunez. Eta egun orreitan, euskaldunak poztu ondoren, euren euskaltasuna indartu egiten da. Jai oneik onuratsuak dira.

Kirolak ikusketa uts-uts biurtu jakuz, gizonaren nortasunarentzat kaltegarri geienetan, baiña euskal-jaiak arrisku ori azpiratu dabe eta nortasunaren indartzaille izaten dira, bakotxarentzat eta Erriarentzat. Au, batez be, Euskal-giroa osoa danean eta jai orreitarako bear dan lez jai-zaleak gertatzen diranean. Txalogarriak, benetan, jai onein antolatzailleak: Erria otseintzeko bide bat eta bide on bat artu dabe eta euren buruausteak onuragarri dira.

AGVR



Ustez, ur orlegiak nituan oñean,
izarrok ziralarik islatzen urean...

IDAZLE GUZTIERI... OAR SORTA


Gure aldizkaria aurrera doa lenengo egunetik jarri genduzan elburuak gidaritzat arturik: erriaren izkuntza erabilliaz sendotzea ta euskal kutsua gaietan gordetzea. Irakurleen artetik arrera ezin obea izan dogu; gure arpidedunak geitzen doaz baiña geiago bear doguz; **Bakoitzak barri bat ekarri!**

Gaurko dei au baiña, idazleentzat da. Ona emen oar batzuk:

Danok dakizuen lez «batasun» bidean gagoz ta gure «euskera batu» ori «Erri-bide» taldearen araueri jarraituz lortuko dogu; erriaren erantzunak erakutsiko dauskuez neurriak eta epearen aldi-une edo luzeerak. Idazle bakoitzaren nortasuna gorde nai dogu baiña arauak betetzen saiatuko gara. Orregaitik zuen idazlanetan aldaketa batzuk sartzen ba'doguz, ez mindu arren. Ez dogu baiña iñor beartu nai; zazpi bide dagoz, batean alkartu gaitezan, beartu bage, bidea erakutsiz.

Sarri esan dogu ta barriro ere esan bearko: EZ LAN LUZERIK bialdu. Gaurkotasundunak eta laburrak bear doguz, errezak eta atsegin irakurtzekoak. Ez goaz neurri estuegirik jartzen baiña makiñaz lerro bira idatzita, kuartilla txiki bi baiño luzeagorik ez, arren. Al dala makiñaz eta labur! Lan luzeak ezin argitaratu izango doguz.

Idaz-lan bakoitzaren erantzulea, egillea da. Iritzi zabalekoak gara ta errizaleak izan ezkero danak onartuko doguz, baiña orrek ez du esan nai egillearen iritzia aldizkariarena danik.




Al dala gaiak aukeratzeko, gure aldizkarian erabilten doguzan arloeri begiratu. Barriakin astea komeni dala uste ba'dozue, eskatu.

Lanak beti argitaratzen ez ba'doguz, ez asarratu, askotan ez da lekurik izaten eta.

Euskera aldetik, batasunik lortzen ez dogun artean edozein euskalkitan idatzi... baiña arren, euskera errikoi ta garbian; euskal irakurleak «mordollokeri» naiko aurkituko dabe nun nai eta. Euskera zaintzailleak edo izan bear leukeenak, erdera guztieri ateak zabaltzen dautseezen artean, guk euskera jatorrari eutsi bearko dautsagu.

Amaitzeko len esan doguna: LABUR, LABUR idatzi ta eskerrik-asko.

AGUR'eko idazkaritzak



OPORRALDIA

Opor egitea, auxe da: jai-egun ez dan beste edozein egunetan lanik ez egitea. Gure baserrietan, eguraldi txarragaitik edo beste zeozegaitik izaten ziran oporraldiak. Orain, besterik da: langille geienak, urtean bein, izaten daben atsedenaldiari deritxogu opor egitea. Len, oraindiño antxiña ez dala, ikasten ziarduenak edo aberats ziranak izaten eben oporraldia. Orain, langille ta jende-mailla geienetara zabaldu da oitura eder ori. Amabost egun, iru aste, illebete osoa... orra, urietan beintzat, geienok izaten dogun oporraldi zorionekoa... Oporraldia, baiña, zetarako?

Lenengo ta bein, gogo ta soin, arima ta gorputzaren atsedenerako. Norberaren izatasuna, nortasuna, gizatasuna goratu ta aupatzeko; gure begi-biotzak izadiaren edertasunaz gozatu ta asetzeko; batera ta bestera ibilliaz, lurbira zabalean aurkitzen diran ikusgarriak ezagutu ta maitatzeko... Itxasertz zoragarri bat, gau ozkarbi ta izartsu baten aunditasuna, mendi-tontor baten zorion ixilla, txorien txorrotxio alaiak, basoetako kerizpe gozoaren bakea, gizaldietan zear egin izan diran eleiza, zubi, irudi ta edergarriak... Orreik guztiok ikusiaz gure barruan poza ta zoriona sumatzeko: orretarako izan bear dau oporraldiak.

Gure askatasuna erabilteko be bai. Eguneroko bizitzan, lantegian dala, ikastetxean dala, bizilege zorrotzak bete bear doguz. Gizarteko bizitzak ezarten dauskuz lege orreik eta ezin, iñundik be, lege estu orrei iges egin. Orduak zintzoro bete bear izaten ditugu; goizetik asi ta gauberarte, eginbearren lokarri astunak lotzen gaitue; lanaren menpean bizi gara eta beti lan berean jardun bear orrek aspertu egiten gaitu... Orra ba zetarako dogun oporraldia: bizilege orretatik geure burua askatzeko, eguneroko taka-taka estu ori apurtu ta bide barrietan ibilteko. Orduak eta zeregiñak eta ibillerak, dan-dana, geure esku izateko, ta ez gure nagusi. Gaur itxasora, biar mendira, urrengoan... iñorabez. Zer egin eta nora joan, norberak aukeratu, askatasun osoaz. Bai ederra! Bideak billatu ta asmatu, edozetariko asmo barriak sortu, gure naimenaren egoak zabaldu ta gorantza egin, Jaungoiko Egillearen landike ta bidelagun izateko.

Eta askenez, alkar-maitasunerako izan bear dogu oporraldia. Gure erritar eta aberkideak ez eze, edonungo giza-lagunak gure anai dirala ikusteko ta agertzeko. Gaurko egunean, egazkiñen bidez, ordu gitxitan joan gaitekez edozein lekutaraño. Ori dala-ta, lurtar guztiok, naiz baltz izan, naiz gorri, naiz zuri, geroago ta baterago gagoz, ondoago, alkartuago. Eta alkartasun ori berotzeko, bai eder dirala oporraldietako ibillerak! Bai egoki, umeentzat eta gazteentzat egiten diran mugabako biltokiak! Bai pozgarri, lurbiraren lau aldetara zabaltzen diran milloika idazki agiriak, alkarri agur beroak bialduaz!

Orrelako oporraldi gozo ta atsegingarriak opa dautzuedaz, nire lagun guztioi...

ALBIZU'TAR KEPA

EUSKERA

ZIGOR - ZITU

Idazkiarentzat agian, idazpuru txarki aukeratu dut. Biurri antzekoa. Latza izatea ere gerta liteke. Egia izan, ordea. Gure egun auetan toki askotan bezela, ume giñanean euskeraz itz-egitea zigorgarri ta zigorkizun genduan. Artarakoak kask!!, jotzen nindunean, nere barrua gogorragotu edo egiten zitzaidan. Seta gordiñagotu. Sua indartu. Gogoa irazeki. Euskal-maitasuna mamiraiño jetxi.

Zurgiña, iltzea egurrean sartzerakoan, ez da gorrotoz ari. Baiñan mailluka ekitean, arek zurari iltzez biotza ikuitzen. Oro bat, gizartearen uiñek bakarra ito nai: olakoetan iñork zapal gaitzan ezin onar izaten guk. Ta, galgak eta erasoak ainbestetan izaten! Bai izkerari ta idazkerari buruz ere! Esango nuke!

* * *

Lengoan euskal-orrietako batean au irakurri dut: «Ene ustez errespeto geiegi diogu idazteari hizkuntzaren inkisidore ortodoxeen aserrea gureganatuko degun beldurrez. Hobe genduke, ordea, franko idaztea (funtsezko txukuntasunari begiraturik, noski) gutxi ta landuegi baiño».

Oraindik ere asieran diodana gertatzen zait. Alegia: zertxo askok buruko-min ematen neri. Txukuntasunak zer neurri bear du? Aundia? Txikia? Erdipurdikoa? Eta, euskeraz idatzitako zenbait puxka makur irakurriz, berriren-berri kiskali egiten naiz. Ta nere buruari ez nioke inkisidore izena eman nai: alaxe naizenik ere ez bait-dut uste.

Nere bizitzan ainbeste aldiz egin izan dedanari jarraituz, alako idazkera errenak berealaxe orri berexietara aldatzen ditut. Irakurri orduko. Bestela non irakurri izan ditudan ezin aurkiturik ibilliko nintzake-ta.

Neronentzat artzen ditudan lanak, norbaitentzat argigarri litezkelakoan, noizik bein berridatziz eta al dudan garbiena ezarriz, aldizkarietara biali izan ditut, aietan argitara nai ba'lituzteke edo. Ondoren, bein baiño geiagotan erantzun izan didate. Oraingoan ere pozik ikusiko nuke nere iritzien sendogarri, norbaitek zerbait esango ba'luke.

Ta? Argigarri-zurrean, bai batasunerako ere. Batasunaren egal zabalak eta magal atoskorrak guztientzako daude ta zelai nasaietarako. Egi aundia bait-da. Batasuna, guztien maitasun eske dago: guztiek maite bear dugu. Bat izan! Batean jardun! Era batean idatzi. Gaiak ugari erabilli. Zidor berriak urratu!

Nere irakurle anai: bai! Era batean idatzi? Geiegi eskatzea al da? Mailla besterentzat goragi al daramat? Ez dot uste. Batez ere, euskaldun guztiok goizale ikaragarriak izanik. Aspertu gabe izarrei so egongo giñakenak: ez ero! Baizik aien ederra geronganatzeko gosez eta gogoz. Mendien tontorrak garaitzeak poz ematen guri! Iñondik ere gaiñik erpiñenak ez gaitu ikaratzen. Eta idazterakoan geron euskera aratz erabiltzeko lanak, ez digu burua galduko, ez txoratuko, ez ergelkeriz beteko.

* * *

Iñori min emateko aserrerik gabe, ona emen zenbait iruzkin.

Itz auxe: ezagutu, ezagun, idazle guztiek zuzen ote-darabilgu? Galde au, nere buruari amaikatxotan egin izan diot. Zer erantzun osatu izan dedan? Ona: ezagutu besterik ez izan: baizik, len ikusi izandako norbait berriro ikustean aren berri ba-dugula aitortu. Ikusi ez danik ez da ezagutzen. Ikusia ezagutu. Ikasia jakin.

Ongi dakit euskal-izen adiarazpeneko iztegirik ez doguna eta olako lana lenbaitlen izan dezagun irriki bizia dagona: eske isia. Eta iztegirik ez izatetik ainbeste izkera makal.

Norbaiten berri izan diteke ua ezagutu ez arren. Ez bekit iñor agertu liskarrean, irudiak ikusiz ere norbait ezagutu litekenik. Irudiak ikusiz, geienean ere, alako ua nor dan jakin dezaket. Norbaiten berri izan dezaket ua ezagutu ez arren. Eta edonork dakianez, aurpegiz asko ezagutzen ditut, aren berri zeatz jakin gabe: ez non bizi dan, ez aberatsa ete dan eta abar. Zenbaitetan gero!!

Alderdi ontatik azterketa osatuz, ondoren dakarzkidan esakunak astindu ditzagun beti ere ikasteko gogoz:

1.—«*Agintedunen* jokabidea *guztiek* ezagutzen *dezute noski*». *Jokabidea jakin oi dan zerbait da noskiago. Onela adierazteko obe, agian: ...agintedunen jokabidea zer dan ba-dakitzute noski.*

2.—«*Egoafrikarrek... ez dute egiazko* askatasunik ezagutzen»... *Askatasuna izan egiten da. Beraz: ez dute egiazko askatasunik.*

3.—«*Beltzak, berriz, erri soillak, obeditu beste* erremediorik *ez du* ezagutzen».

Emen ere, nere ustez erremedioa izan edo ez izan dugu kakoan zintzikatzekoa. Beraz: erri soillak obeditu beste erremediorik ez du.

4.—«*Jokabide oker orrek lurrean dirauan bitartean, gizadiak* bakerik *ezingo dau* ezagutu». *Aurreko* askatasun *eta* erremediori *bezela* bakeari *ere izan dagokio. Beraz gizaldiak* bakerik *ezingo dau* izan.

5.—«*Jesukristo munduak* ezagutu *dauan gizonik aundiena ta jakitunena izan da*». *Munduak* izan *eta mundukoek* ezagutu, *noski! Beraz emen:* munduak *izan* dauan *gizonik aundiena...*

6.—«*Munduak ezagutzen ez eban zerbait ekarri eban gizon egin da lurrean agertu zanean*». *Munduak ez* ekiana *edo ez* ebana: *baiñan bi* eban *ain urren ez ipintzeko onela idatzi daigun: munduak ez ekian zerbait ekarri eban gizon egin da lurrean agertu zanean.*

7.—«*Zuentzat dago zeru-erreiñuaren muña ezagutzea*» (Mat. 13,11; Mark 4,11; Luka 8,10). *Ezik une ontan idazteunitzultzailleak bat ez datozela. Onela itzultzen dutenak ba-dira: ulertu, jakin, berri izan eta abar. Adiburuz: Zuentzat dago Yaurreriaren mami ostena* ulertu *al izatea: mami ostenaren berri izatea. Puska au onako onen antzekoa da: «Ain da samurra Jauna: txasta ta ikusazute»* (Eresi 34'garrena, 9'garren txatala). *Olabide'k onela: Txasta ta ikus ezazute Yaube'ren aberastasuna. Orixe'k: Iasta eta ikus zein samur dan Jauna. Zugasti-Kerexeta'k: Txasta ezazute ta ikus zeiñen ona dan Jauna!!*

8.—«*Eta zoritxarretan alkar laguntza biozkorrak* ezagutu *izan dira. Puxka goragoko geienen antzera aztertu genezake: laguntza biozkorrak izaten diranean, orduantxe gu ongi. Beraz: Eta zoritxarretan alkar laguntza biozkorrak ikusi izan dira.*

* * *

Bukatzeko nere buruari oar au dagiot: nolabaiteko puxkak baiño, txito bikain idatzikoak emen erakustea egokiago zitekean, bear bada! Bai ta bai!! Olakoetan, ordea, iñor zuritzen ari naizela ere esango lidateke.

Ala ere, egoki esanak ortxe ditugu ESAERA ZAARRETAN ugari.

ETXEBERRIA'TAR P. S. I.

EUSKERAZ, ARREN, A. VILLASANTE

Z. A.'ren 422'gn. alean agertzen danez, A. Villasante, euskaltzainburu ospetsu orrek erantzuna ematen diozu «GALDEZKA» nere idazlanari. Benetan eskertzeko gauza arkitzen dut, aintzakotzat artu eta, azkenean, irakurri zenidalako.

Zure jarrera txalotzekoa dalarik ere, nere galdera guziak argitzeko aiña arrazoi ez dut arkitzen zure idaztian.

* * *

Leendik birritan esanda zegola ori dana? Eta ez gerala mamiaz jabetu? Diteke na da. Zuk alaxe aitortzen duzu beintzat, ziurki aitortu ere. Bi argitalpen oriek nik uste, «Irakur Sail»'eko BATASUNA eta XIII'gn EUSKERA izango dirala, guzi oker ez banago beintzat.

Bein eta geiagotan irakurri ditut XIII'gn EUSKERA ortan Arantzazu'ko lana eta gaiñerakoak. Ez dudala, orde, oiñarri-lan aietako mamirik artu? Zenbaitzuek artu duten erara ez beintzat; beste zenbaitzuek nai zuten gisara ere ez.

* * *

Zergatik ote? Oiñarri-lan aiek ez al dute euskeraz emanak izatea beste errurik edo akatsik?

1968'go urrillaren 27'ko Z. A.'n egin nituan eskabide batzuk. Bi aipatuko ditut, gutxi-geiago arira datozenak.

Lenengoa: «Bere mailla batean, izkuntzalariak dira maisu eta berak dira gi dari, izkuntzaren muiñari dagozkionetan. Baiñan izkuntza, era batera ala bestera erabiltzearen ondorenak ere aztertzekoak dira. Ontan nago ni: gizarte aldetik be giratu-ta ere atera bear dirala kontuak. Gizarteak ere ba ditu bere joerak eta joka bideak, ba ditu joka-legeak».

Oraindik, ordea, ez dut jakin ortako ezer egin danik.

Bigarren: «Batasunera bidean azken-itza erabaki aurretik, ager dezaiguteln arren, erabaki bakoitzaren arrazoia. Arantzazu'n emandako orriek ziotena, egi esan, izkuntzalari ikasien maillan zegon. Ain laburki eman bearrean, ez al ditezke oparoago azaldu, adibide geiagoz eta abar?».

Eta? Aldi luzea joan ondoren, leengo-leengoan argitaratu ziran oiñarri-lan edo «proposamenduak», Arantzazu'n eskuetara eman zitzaizkigun gisa bere-berean, ezeren adibide ta azalpen geiagorik batere gabe.

Arritzekoa al da, beraz, izkuntzalari jakintsuen maillako lanak (zuk diozun «tekniko lanak») izkuntzalari-karrerarik egin gabekuok ez ulertzea? Eta... ori bera erderaz ematea izango ote da biderik erosoena guziok uler dezagun?

* * *

Bestalde, Mitxelena jaunak esana dakartzu arrazoi nagusitzat zeure lana aldeko teko edo babesteko. Ori bai ez dudala ulertzen! «Quia magister dixit» edo «Irakasleak diolako», alegia. Beste garai batzuetan balio zezakean. Gaur...

Jabetzen naiz, A. Villasante, itsuak ere ikusten eta bereizten dituala idazkien maillak. Ba da, ordea, nere buruan sartzen ez danik: Zuk diozun «tekniko lanak» dirala-ta, erderaz idaztea, nolatan izan litekean mesedegarriago.

Arrotzentzat ulergarriago, bai noski. Bertakoentzat, euskaldunontzat obe? Eta eta ez! Berriz eta berriz ere bertso eta ipuiak bearko ditugu orrela, batzuen sorkari eta besteen ausnargai.

Alperrik aipatuko didazu Euskalerri'ko edozein jakintsu; erderaz egindako lanez ez digu salbatuko Euskera, ez digu aberastuko gure izkuntza. Arrotzen begietarako txalogarri biurtuko du apika; edozein atzerritako izkuntzalari erakar dezake gure Euskera ikastera, agian. Baiñan ezin esango duzu euskaldunori bide berririk urratzen digunik.

* * *

Bein ontara ezkero, esan bear dizut, guziz eta biziro arritu nautela zure zenbait esaunda edo esaldik.

1'go: «Irtetzen» ori nolaz idatzi duzu? Esan, egin, eraman, e. a. bezala, IRTETEN edo URTETEN esan eta idatzi oi dugu non-nai eta beti.

2'gn: «Gogoan dut Mitxelanari idatzi nizkion hitzak». Nik uste, beste era ontan bear lukeala: «Gogoan DITUT... idatzi nizkion hitzak».

3'gn: «Eta orain diot»: «Esan nahi dut»: Itzak euskerazkoak dira, baiñan ez diet euskal-kutsurik arkitzen orrela, zure idaztian daudenez dauden.

* * *

Leengora noa, A. Villasante. Idatzi ezazu euskeraz, arren. Leendik euskera dagona —euskaldunontzan danean beintzat!— argitu dezagun eta zabaldu, arro zoitu, ausnartu eta xeetu euskeraz, EUSKERAZ! Ezer baldin bada-ta, euskal-gaiak edo euskerari dagozkionak (euskaldunentzat diranean eta areago!) dira euskera arrotu eta jorratu bearrekoak. Bestela beti leengoen oztoparri berean buruzgain katuko gera.

Ulertu ala ez ulertu (mamiaz zure gogara edo naira artuko ez badizut ere) irakurrito dizut euskeraz idazten duzuna; ez orrela erderaz edo-ta latiñez idatzi dezazuna. Euskerazkoak, bai, irakurriko dizkitzut, gogorik ez didala ematen eta onelakorik zugatik iñori esan gabe irakurriko ere.

Beste barik, zuk aipatzen didazun gibel-ondoko zera ua izendatu ere gabe, na dezazun arte.

GAZTAÑAGA'K

POZAK ETA KEZKAK

IZTEGI BARRIRAKO:

Batasuna = Baten edo biren (gitxi beintzat), mordoska bat artaldean batu ta arakintegira erraz eroateko, buru-jabetzea. **Batu** = alkartu ala batzuen naia egin?

Ezkontzea = Atzeratuen eta morroi bizi nai dabenen buztarria. Erantzuna: maitatze-azkatua besteentzat; eurak ezin, andreak edo lobeak ez dautse izten-eta.

Seme-alabak = Gurasoak lapurtu dituenak. Erriantzako azkatu egin bear eidozuz. Auxe erakutsiko dautsee: lanik egin gabe bizi izaten; iñorengan eretxi onik ez; gurasoei jarkitzen; zarren lepotik bizi ta agure-etxeetara bialtzen...

Jaungokorik eza = Zure aurrentzako aurrerapen izugarria. Norberanak, bada-ezbada, monjetara.

Neskea = Azkatasunera ekartzen zailla dan zerbait. Bein azkatu ezkero baiña, betiko azke... ta nor ezkondu olakoakin?

Mutilla = Erraz azkatu daikena, zezena oial-gorriak lez dakarkizu. Baiña... bein ogetamar urtera ezkero gaitz zarrak lotzen dau: «zentzunak» eta edozein neska atzeratukin ezkondu.

Euskerea = Erderaz obeto itz egingo dozun «lenguajea».

Euskalduna = Iñoren etxea konpontzeko morroirik egokiena.

Euskalerria = Zer txatxarkeri da ori munduko arazoen aurrean? Lituani bera baiño be txikiagoa.

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

TXILE, ALLENDE TA GU

Gazteak euskeraz ikasten pozik ikusten doguz; gazte orrein artean baiña maixukeri asko izaten da askotan. Euskera egiten jakin ez eta iritziak parra-parra, emoten dira euskera gaietan.

Egun bi edo iru dira, neure lagun gazte bategaz alkar-izketan nengoala, euskeraz ikasten asi barria da ta ederto egiten du gaiera. Ez da maixukerietan sartzen dana, baiña borondaterik onenagaz, euskal aldizkariari buruz eztabaidan asi giñan. Gure «Agur» eskuma itxurakoa zala uste ebala azaldu eustan.

«Baiña zuk irakurtzen dozuz aldizkariak?», irandu neutson.

«Bai, noizik bein baiña ez asko...» bere erantzuna.

«Zelan dakizuz ba gure iritziak?».

«Ori diñoe batzuk eta...»

«Ederra kontua», esan neutson, «ara, artu dagiguzan aldizkari oneik eta aztertu; gure idaz-lan buru edo tituloak «mordoilotu» dagiguzan... Orain bai gaurkotasuna!».

«Bai, esan eustan, baiña zuek, erbesteko laterrietako politika arazorik ez dozue erabilten, zuek Allendetzaz eta olakorik ez dozue ezer esan, gaurko problemak ikutu bear dozuez».

«Zelan ez?» barriro nik, «labur baiña bai erabilten doguz al dogun neurrian. Allende jauna izendatu dozu ta bere iritziak beste aldizkari batzuetan irakurri doguz, batzuk erderaz, beste batzuk euskerara itzuliak, geienak jaun ori goraltzen».

Nere iritzia azaldu baiño len bere geroko jokaerea ikusi nai neuke. Demokratzia bidez sozialismora joatea atsegin jat. Erriak auke-ratu du ta gizon jatorra dirudi. Ego-Amerikako giro illun eta larria aize barriakin gozotuko dabelakoan nago. Gizarte barria sortu-erazi ta bardintasuna erakarri. Gutzat pozgarria orrela ba'litz!

Baiña lengo gau baten bere irudia erakutsi euskuen telebizioan, españar izparringilari baten itaunketeari erantzuten.

Erantzun jatorrak emon eutsazan geienean, zintzoak zirudien, baiña batek apur bat kezkatu nindun; ona emen gitxi gorabeera: «Demokrazia burgesaren jokaera bidez lortu dogu agintaritza ta joko oneri dagokion berezitasunari jarraitu bear dautsagu oraindikan beintzat; jokabide orretan gutzat egoki ez diran gauza batzuk ere onartu bearko doguz gure iraultzaren lelengo maillan, adibidez, aurka dagozan taldeak edo opozizioa ta euren aldizkarien askatasuna, sarritan gobernuaren aurka bakarrik agertzen diran izparringiak».

Erantzun au entzun ondoren, len esan dodan lez kezkatu nintzan; zer esan nai eban? Erriari aurpegi bat erakutsi ta gero, agintaritza sendotu ondoren, gogorkeri bidez, aurka dauden guztiak «garbituko» dituala? Zai gagoz, arretaz, zer jazotzen dan ikusteko.

Sozialismoa onartzen dot gizonaren eskubideak errespetatzen dauana ba'da. Gogorkeririk ez, margoari begiratu barik.

Ori izan zan telebizioan, neuk entzun eta neuk ikusi nebana; orregaitik, entzun ez eben irakurleentzat idatzi neike. Gaurkotasungo gaia danik ezin ukatu... eta etorkizunerako garrantzitsua, gure ustez bai beintzat.

ARENAZA'TAR JOSU

NUNDIK NORAKOA

IV.—ERBESTERA

Zazpi urte bete nebazala ta, nere gurasoak gerorako ikasketa egokiak egitea leporatu eusten.

Portugalete'ko prailletara bialtzea erabagi eben. Santa Maria eritxon eta deritxon ikastetxean Hermanos de la Instrucción Criatiana diralakoak dagoz antxiña. Euren iraslea Lamennais, Frantzitar ospetsuaren anaia. Eurontzako, egia, praillea zan ospetsua, ta besteagaitik «gizon ospetsu onen anaia» ba dakizue alan-olangoa izan zala, esaten euskuen. Niretzako biak ospetsuak... ni mundu onetara etorri nazalako. Etorri ezik, ni emen egon ezean, ez ziran gizon barri beten belarrietara elduko ta. Neuri eskerrak zabalagotu da aien entzutea.

Txalet aundi aretan lenengo «preparatorio» bi egin bear. «Ingreso» ezin zeitekean egin amar urte euki arte edo amar urteak egiten ziran urterarte.

Idazten, zenbakiak eta olakoak ikasi neutsuzan orduan. Ta regaliz jaten ere bai. Praille areik oso zaleak ziran eta kutxatxu bat erabilten eben beti aldean ikasle zintzoei emoteko. Berebizikoa omen da tripako-miñetarako. Ainbeste jan neban eta, izan leiteke aregaitik oraiñ tripako miñik bein ere ez eukitea. Neure gaurko azalmen au baiño len, iñork ez dau jakin zein neban antxiñako jaki berarizkoa.

Orregaitik ez da arritzekoa nere etsaiak arrituta ta minduta gelditzea nere miñik ezaren ondamuz.

Eskola batzuetan irakurgai politak entzuteko aukera emon euskuen. Esaterako, «Cuore» idaztitik, «Apeninoetatik Andetara» ta antzekoak, biotz-biguingarri ta erdiragarri.

Zorioneko «caligrafía» oker edo atzamarra txarto ipiñita egiten ba'genduan, prailleak makiltxo batekin jotzen euskuen eskua gogor be gogor. Gu txilioka ta erdi negarrez.

Idazkizunak ere sarri egiten saiatzen giñan. Orain zuzen-zuzen idazten dakit... idazgailluz, baiña.

Aldi aretan Santurtze'tik Portugalete'raiño, Bilbao'ra bidean, tranbiak egozan. Gure erri bien arteko ibillaldia amabost zentimutan izaten zan. Gaur egunean tranbirik eta zentimorik gabe nagotzue. Ta nik tranbirik nai ez!

Orduan batchillerrak zazpi urte zituan.

Antxe egoten ziran morrosko andiak, ostiko-zelaian olgetan ta gu arei begirabegira, gizandi ziralakoan.

Illaren lenengo barikuetan parrokira ginjoazan ikastetxe guztikoak Jauna artzera. Aurregunean aitortzak egitera. Ta guztiak pozik: batzuk eleizara-aldia etorrelako, beste batzuk ordu orreitan eskolarik ez egoalako. Ikastolak «confesional» izatea mesedegarri dala argi dago batetik.

Amar urteko nintzala gertatu nintzan batchillera asteko.

Gauza orreik, baiña, beste atalburu bat eskatzen dabe. Onen urrengoa.

Bitartean gogoratu dagigun ango praille guztiak Kastilla-aldekoak zirala ta baita Kastilla'ren aldekoak ere.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

DONOSTI, BILBO, IRUÑA, GAZTEIZ TA

ARRASATE'RA

Danera eltzen ei-gara, ta Sariketa eder onen gaillurrera be eldu gara, Amabi abesti barri entzungo dozuz, ta ez egidazu esan ezin dozunik; zeure ondo-ondora dakartzuez, ta ez ba'zoaz... lotsagarri. Gero ez etorri benetalari itxura orregaz, ez dala ezer egiten esaka. Sariketa au garrantzi aundikoa dogu: Euskal-abestiak aurrera egin, edo gure zarrak egin ebenetan geratu. Diru aundia jarri da, jatsotzen ez ba'da ipiñi dana, datorren urtean «bapez».

Abesti onen eta euren egilleen barri, emon gendun AGUR'en (ikusi 11'garrena). Gaur, noiz eta nun entzun al-izango doguzan esango dautzugu:

Donosti'n Orril onen 23'gnean, Astori aretoan.
Bilbo'n Orril onen 30'gnean, Buenos Aires aretoan.
Iruña'n datorren Bagil'eko 5'gnenan (aukeratzeko oindiño).
Gazteiz'en datorren Bagil'eko 13'gnean, Guridi antzokian.
Orreitan entzungo dozuz amabi abestiok, eta bertan izatean, zeure autarkia be emon, orrela
ARRASATE'n Bagil orren 24'gnean, Jon deunaren egunean,
Zaldibar izeneko pelotalekuan
jokatuko dan azken txapelketarako sei abesti onenak aukeratzen lagundu zeuk be.

Ta nork abestuko ditu? Onetatik be ba-daukazu zergaitik joan bearra: Estitxu, Zorion, Aulestia, Bedialauneta, Larrañaga biak, zarautarra ta arrasatetarra, Ordoki, Remuñan eta Zamudio. Gero, abesbatzlaguntzale Legazpi'ko «Itxaropen» eta Azpeiti'ko «Unai» irukoteak, ta Cordero jaunaren zuzentzapean eresbatz gorenengoa.

* * *

EUSKAL HIT PARADE

Azken neurketearen zain gagozela, ea onen amaieran zerbait esan daikegun, Jorrail'ean jokatu zan Abra'ko III Sakiteatzaz be zerbait esan bear dogula ta, ara ba:

Algorta'n izan dogu, Gurea aretoan, osorik ez ba'zan bete be, tira... irutik bi bat. Algortarrak, itxuraz, gitxi etorri jakuzan. Izango ete-da laugarrenik?

Goizean goizetik, an ziran txistu ta guzti, Patxo'ren jarraitzaleak, baita Bermeo'ko txistulari gazteak. Kale-jira, porrusalda... ta erria biztu nai. Ez zan baiña bertokorik agiri: «Nun da emengo gaztedia?» entzun gendun, «Nun euskal-dantza taldeak?». Barre-eragiten edo batek: «Ondartzan!». Egualdia be ona zan-eta.

An agurtu genduzan arrasatetarrak, eta entzun be bai: «Agur Patxi, nola dabillazak Santurtze aldean?». «Ondo».

Agertoki gaiña, apal, erdi utsik, atsegiña baiña, ikusleeri polita eritxoen. Lora, abeszulo zutiñak, ereskiñak, sariak eta benetasuna. Sariketea, gero Show'a. Ugaria, Abestiezkutuak, kitarra-ots laguntzaleak, bakarketak, aurrak, esku mikroak, danetarik... autarkiak onesteko baratari bat be bai.

Gure belarriok erne albokoeri entzuten: «Zenbatekoa ete-dok lenengoantzako sariontzi ori?». «Ori... irumilla ogerlekotik gora, on-ona dok, ikusi!»... «Nun izango ete-dok laugarren sariketea?». «Portugalete'en, nun ba? Or dabillaz urte bian or izango dala esaten». «I... Betikoa izango juagu aurkezlaria, ez ba?». «Bai, ta garaia dok berau be saritua izateko... danerako dok ori erakusle, alakorik!»... «Etorri ete-dozak telekoak?». «Nun ba! Ez dakik ala Karina ez dabillela emendik!

Atsegiñez entzun gendun Abra'ko III sariketa au, ta urteeran, sariketa neurria eskatu neutsanean lagun bati, onek: «Egon adi apur baten, ontxe datok «Biotz-Alai'ko bat eta orrek jakarraz». «I baiña, Zer jarabik ba emen «Biotz-alai'k?». «Ez dok irakurri ala?, eurak dirala eratzale? Or datok».

Erabakia-baratariak izenpetuta:

1.—Patxo Arcatzatarra . . .	302	autarki
2.—Joseba Zarraga, mungiarra.	142	»
3.—Josu Zabalondo, bermeotarra	124	»
4.—Yayone, Romo'ko alabea.	52	»
5.—Ana ta Amaia, bermeotarrak	49	»
6.—Lupe, bermeotarra au be.	31	»

Ta an lanean ebizeneri gure galdera: «Zenbat izan gaituk emen?». «Zazpireunen bat, duakoak eta guzti». «Autarkiak aiña orduan, or-or, ikusten dogunez». Ta ba ebillen an beste galdera au be: «Zer dala ta ez dok Joseba etorri?

URI-ZARREKO Abesti Sariketea

Jorrail'aren iruan an giñan; gure Euskal Hit Parade'ko irabazle danari eskeintzen dan sariketa jasotzea izaten da. Oraingo onetan, «Sires» jantzigiñak, beste dendarien izenean be, zazpi-kaleetakoenean, irabazleari emoten dautsen saria, Otsail'eko neurketan lenen geratu zanari: Yon Libarona'ri, bere «Alperrik Dijoaz» —Black's night— euskeratuagaitik.

Argazki onetan ikusi daikezunez, «Colombia» etxeko Martinez Poncela jaunak, Yon Libarona'ri saria eskeintzean, zorionak emoten dautsaz bere garaipen onegaitik.

Beste barri batzuk

Erri-irrati'ak, emen, igandeetako amaiketan euskal-eres aldia emoten euskun, bere



izena *Euskal Abestiak*, ta urte biko mutil mardula eginda egoala, bat-batean —giro barrien aurrerapena-ete?— jubilatu egin dauskue itxuraz, gazterik guk uste, ta argitasunik ez. Erri-irratia, errikoa, errikoa ta popularra —ez dauke zertan ordaindu zabalkunde au— popularra ta erriana.

«Naikari» erestaldea sakabanatuta dabil. Ara baiña, barriz osotuko ei-da ta alkarizketetan dabillaz. Ea ba, arin-arin!

Estitxu'k, egun guztiak lotuta. Ba-etorran astiro, baiña ziur. Ez da arritzekoa.

Kanta-Berri sariketarako eraketa berezi ta gorenengoak. Gogor ta bizkor dabiltza. Andoni Argoitia, soldauzkara; Zorion soldauzkara... Ez bata ta ez bestea, ezta or zear diñoezan gauza batzuk be... (Ares jaunarenak euskeraz).

Hit Parade Neurketea

Jaso dogu Jorraileko azkena, or ikusi daikegu, lenago esan genduna, Zorion bere «Bizi Beti Euzkerea» barri orregaz, gogor dator, il orren azken erdian lenengo agertzen da. Ondoren Estitxu, gero Estitxu barriz, 6'gna be Estitxu..., ta beti berau izan ez dadin 11'garren Zorion barriz. Ona emen zati baterako norgeiagoa.

ASTI'TAR PERNANDA



(MAURA argazkia)

KONTU KONTARI

ALKAR-IZKETA (II)

Batzarrak.

—Arratsalde on!, Manu.

—Baita euri be, Anton. Ze barri dakak ba?

—Barri on askorik ez. Baiña lengo egunean euki giñoan barriketaldi ostean, etxera niñoala, asmo bat bururatuta etxeratu nintzoan. Ba dakik zer?

—Euk esan bearko daustak, ni igarlea ez nok eta.

—Ba, nozik bein, astero edo, barriketaldi bat egiteko batu bear gintzakezala. Beti be, bizitzako garraztasunak gozatuteko asazkaldi bat ondo etorriko litzakek.

—Orretan ñagok neu be, mutil. Gaur egunean batzarrak egiteko oiturea, baratzeko porruak baiño ugariago egin dok eta, geuk be besteak baiño gitxiago ez yoguk izan bear...

—Alantxe dok izan be. Baiña ez az konturatu «goyenengoetatik» asita, yataldi eder bategaz amaitzen dozakala? Geyenak beintzat!

—Bai, gizona, ta uste yoat olan ez ba'litzok, ainbeste batzar eta «batzarzale» ez litzakela izango. Onegaz etxoat esan gura, ta urrik emon be, gizartean batzarrak bearreko ez diranik, ez ta onuratsu ez diranik be.

—Batzarrak beti dozak onuratsu, batzuentzat beintzat; esaterako yoan-etorriak eta ostekoa euren «kata-narrutik» ordaindu bear ez dabenentzat. Bestera ba litzok, batzarrak urriagoak izango litzakezak. Ez dok uste?

—Bai neu be orretan ñagok. Baiña ba dakik, gaur yoan etorrietarako erreztasun aundiak yagozak, gizonen artu-emonak be ugariago, auzi ta erabagigai geyago, alkar aituezin geyago ta... naste geyago be bai... eta olangorik ez dagoanean, gaur batzuk esaten daben lez «prolemak» asmau ta kitu.

—Ori be batzuetan gertatzen dok. Baita auziak erabagi bearrean urrengorako itzi be.

—Orixe egiten yoan nik ezagutu ñoan gizon batek. Bere morroia itugiñak kentzeko bialtzen yoanean au esaten yeutsan: «Itugiñak kendu egizak, baiña urrengorako be lana gertau».

—Olango zerbait batzarretan gertatzen dok. Gaur egunean itaunketa-aldian bizi gozak eta orretarako eskubidea guztiak yaukeek eta ezin galerazo. Onen ondorena «itaunak» ugaritzea, ta, ba dakik, onek ez yaukek amairik.

—Alantxe dok. Eta orrek gomutara yakarstak yakitun betek esan yoana. Ezyakin kirten batek aldi laburrean itaun geyago egin leikezala urte askotan yakitun askok erantzun leikezanak baiño.

—Ori olan ba'dok zati baterako batzarrak egin bearra izango dok mundu onetan, naiz ta guk legez, koparen bategaz amaitzen diranak izan ezkero, gitxiago izan...

—Izan be, «gasolinea» amaitu ezkero urrin ezin yoan leitekek.

—Gaurko naikoa izango dok. Etxean zeregin batzuk yaukazat eta, agur.

Agur ta ondo ibilli.

URIGOITIA

IRU EGI

Kontu-kontari nator, goiko idazburuak diñon lez. Eta egin-egiñean be, zeuek dakizuezan kontutxoekaz.

Asi naiten. Ill onetan, San Juan Anteportalatina eguna izan gendun, eta egunak gogorazita, guk, lagun artean auxe abestu:

San Juan Anteportalatina
larunbat arratsaldean,
amalau atso tronpeta joten
motroillu baten ganean.

Arazo bakotxak, bere burutapenak ekarten dauz, ta guk be izan genduzan, abesti orretzaz. Auxe; edo motroilloa zan aundia edo atsoak ziran txikiak.

* * *

Ipar-Amerika'n, bake-zaleak, agerketa aundi bat egin eben gudako naste guztien kaltez. Berrogei milla inguru ei ziran bake santuaren itzalpean kaleratu ziranak. Eta euren gogai doneak egiztatzeko, auxe egin eben: Bidean aurkitu zituen denda guztiak zulatu, arrika ta makillaka ibilli, berebillak itzuldu, su-emon, garra atara, ta eundazak giza-seme zauritu. Bastarrak guztiak atzekoz aurrera jarri. Nere burutapena? Auxe: edo bake-zaleak drogoso batzuk ziran edo drogosoak bakenarruz jantzita egozan.

* * *

Auxe be irakurri neban:

Gaztelerea laster ilgo dala. Zergaitik? Idazle arek iñoaenz, **latiña** ta **gerkera** (griegoa) il diralako. Gaztelerearen arrobia, bi izkuntz orreik ei ziran, eta il diralarik, gaztelereak porrot egingo ei dau.

Ez dakit, igarle orren boleak txirlorik joko daben. «Or konpon. Txakurrak buztana berea jon». Ta nai ba' dozue, aldrebez: «Bustanak txakurra bera jon».

Illeta orrekin ez daukagu zer ikusirik. Euskerea be ilgo dala? **Bizkaierea** ta **gipuzkerea** erailten ba' ditue bai. Ortxe ziur naiz.

Baiña ez dira ilgo. Zertarako gagoz ba gu emen? Errekontxo!

ABELETXE

URRE - ALDIA

Sarritan entzuten dogu urre aldian gagozala.

Diru aberastasunari begira egia da, baiña ain ziur enago, nere erri maiteari ikustaldi bat egiñaz.

Zenbat oitura zar, zenbat alderdi eder aldatuta, ta bat eta beiñ zelan gura nortasuna aldatuda urre aldi onetan.

Bearrezkoa da oitura barriak artzea, gizarte barriak euren artu-emonak dabezan ezkero, bai ta be, gure erriaren aurrerapide guztiari, gure laguntza agertzea.

Baiña, besterik ez bada gogoan artu daiguzan joan diran oitura ta irudi zarrak ta idatzita ipiñiaz, gure ondorengoak ikusi dagiala, zelakoa zan euren gurasoen erria.

Gaur gure baserrien eragozpenak azalduko doguz.

Urte asko ez dala, zenbat margolari ikusten zan Labean, Emaldiñeneko, atalondoa (portalada) margozteko asmoan. Bide zabalagoa bear zala ta, atalondo ori lurreratu zan, urre aldi onen saritzaz.

Ta baserria bera be, sutunik ba'dago, eskerrak emon bear, bere ugazabak daukatsen maitasunari. Naita bere edertasun aundiena galdu atalondoa lurreratukeran, gaur be ederto apainduta dago beragan egin diran barriztasunakaz.

Usansolo'n, danok ezagutu dogu Torrea. Torreondo deitzen dautsagu gaur bere, bera ezarrita egoan auzunari. Zenbat edesti, zenbat gora-bera izango ziran Torre eder onen inguruan, baiña, ezer jakingo ete dabe gure seme-alabak bier etzian?

Urgoiti'ko Jauregia. Nork ez dau ezagutu Jauregi ori? Ez guk bakarrik, bai ta be Bilbo'tik Donosti ta Garteiz'era joaten izan diranak bide zabaletik, ondo ezagutu dabe.

Bilbo'tik Irun'era bide zabal barri bat asmatu zanean, ta Urgoiti'ko Jauregia arriskuan ikusi, ainbat abots altza ziran oroitarri ori bizirik ikusi daigun, baiña alperrik.

Bide zabal onen omenez ordaindu bear zan sari bat, Urgoiti'ko Jauregia zan.

Ta gure ametsari agur eginda, Jauregia lurreratu zan.

Erreketa'ko baserria. Bere aterpean zenbat gaztek atzo ta gaurko, euran laztankeriak ezan ditue alkarri, igande illunabarretan batez be.

Baiña urre aldi onek ez dauka biotzik, ta baserri ori be iruntsi dau.

Zenbat sari ordainduko dautzaguz emendik aurrera? Jaungoikoak daki!

Egun onez agertu daitezala, aberastasunak gure errira, baiña al dala, zaindu daigun bere irudia, ain eder ta maitagarria dan ezkero, Olantxe.

ATXUTEGI'TAR JULENE

TXORI BATEN GOGOETAK

(Jarraipena)

Agiñalde'tik:

Negua eldu ala, Ogerletxu bere kidekoekin ikastolara yoian, bero pixka bat izatearren, eta olan ez-arian ez-arian irakurten eta idazten polito ikasi ebazan, adimen gaietarako ikasbera zalako, bai ta zenbakietarako be. Baiñan udabarriakin batera egun eguzkitsuak agertutakoan, gure mutikoa ez zan ikastolan azaltzen, eta or-emenka zabaldietan zear aske ebillen aita zanaren arraintza ta eizarako zituan zaletasun berbera erakusala, ez baiñan aren trebetasuna.

Bere txangoetan, ikusmen-pean aurkesten yakozan arnari aiña arrapatzen zituan, naiz eta eldu bakoak ba'ziran be. Edozelan sabeleko oiuak baretu bear, eta auzi ontan ezin eitekean mizkinkerietan ibilli.

Gure sendagillearen andre onak, bein baiño sarriago bere baratzeko errege-sagar bikaiñak arrapatzen ikusi eban.

—Baiñan Ogerletxu laztana —maitekiro esaten eutson— itxaron adi egun batzuk sagarrak eldu arte, orduan goxoagoak izango dozak eta guztiak iretzako...

Mutilla zugaitzetik yatxi ta alde egiten eban bere kautan iñoala:

—Bai, itxaron adi egun batzuk Ogerletxu laztana, ta sagarrak sasoira eldu ala, beste baten aborako izango dozak. Obe dok neure urdaillean sagar bat, zure ganbaran otzarakadak baiño.

Beste batzutan, mandatuak egin oi ebazan edo-ta lan txikietan lagundu, ta olan diru edo yanari apur bat lortzen eban.

Askatasun zale, mutillaren bereiztasunik agiriena, bere buruyabetasuna zan. Ez eban iñolaz ere yanari edo laguntzarik eskatzen. Eskuar ba'eukan artu, edo bestelan bere erara antolatzen zan. Praketako eusgarri-botoiak yaulkitzen yakozanean, gerri-ingurutik lokarri bat estutu ta kitto. Geroago, yostorratz, ari ta artaziak iñundik lortu ebazan, eta berak alkondara ta praken arramaskak esku-antze aundiz osatzen zituan.

Urteak igarorik, biziera gero ta zaillago biurtu yakon mutillari. Ba-ziran urteak umezurtz zanetik eta geienetan gerta oi dan bezela, erritarren errukia aldiaren igarotzeaz epeltzen yoian, eta Ogerleko istillu gorriak ikusten asi zan, bakarti baten biziera eroiala, lokarri ta egiazko maitasunik ezagutu barik, eta ereti oneitan sarri yazoten danez, bere oldea gero ta barnekoiago biurtu yakon. Olan, igarri barik aldatz-beera amiltzen asi zan eta azkenik ostuteari emon eutson. Bizitz gazte bat ondapeneko biderantz abiatzen zan...

On Yoseba gure abade gaztea eldu barria zan, eta berarekin batera argi bizi bat errian ixuri zan..., ontaz baiñan beste urrengo batean mintzatuko natxatzue. Goakion beraz arriba Beiñola, norbaitek On Yoseba'ri mutillaren barriak emon eutsozan, eta onek Ogerleko Abadene'ra dei egin eban. Gau artan gure abade gaztea ta bere ama mutillakin apaltzera Abadene'ko sukalde epelean batu ziran. Axe zan benetan Ogerleko'rentzat aspalditik izandako aparirik goxoena, ta bukatu orduko berekiko autortu bear izan eban, Abadene'koak berak iñoizkorik ezagututako gizaseme onenetarikoak zirala. Gero, On Yoseba'k alkarrizketa luze bat mutillakin idaz-gelan izan eban. Gure abade gazteak laister igarri eikean Ogerleko'ren bakartasun eta noragabetasuna. Orduan bere buruari zin egin eutson, mutilla bide zuzenera ekarri, bai ta bere bizitz bakartian goiburu baten argia piztu-arazi.

Gau artan, iñoiz amaituko ez litzake benetako adiskidetasun bat, abade ta mutillaren artean sortu zan. Arrezkero ba-ekian Ogerleko'k nun amatau leikean bere gosea, ez baiñan soiñekoa soillik, gogo-gosea baita be. Abadene'n ba-zan zerbaitek mutilla nai ta ez erakarten ebana... benetako maitasuna alegia. Laister oartu zan Ogerleko extekoandreak maite ebala, bere seme Yoseba maite izaten eban antzera, ta bere bizitz bakartian uts izandako amarekiko maitasuna, gar bizi baten alakoa bere biotzean ernetu zan, eta gero ta biziago Abadene'ko etxekoandrea ta bere semea On Yoseba maite ebazan.

On Yoseba berarentzat anai bezelakoa billakatu zan, eta astiro-astiro, abade gaztearen ardura-pean Ogerleko bestelakotu zan. Irakur eta idazkera obeagotu ebazan eta beste ikasgai barrien alorrean sartu zan, ildo barrietako bide argitsuan zear bere gogoa murgiltzen zalarik. Eta olan igarri barik, gure Ogerleko arlotea benetako gizaseme biurtu zan.

Gero, On Yoseba'k Atxandi'ko metalgintzan mekanika-saillean ogibide bat lortu eutson; yarraian tximist-saillean aspaldi batez yardun zan, eta urte batzuen buruan langille trebe ta arduratsua biurturik, guztien uste ona irabazi eban. Baiñan gure ogerleko bere aukeran biziten oitua izanik, bere esku izan nai eban, eta mutillaren arrangurak ikusirik, On Yoseba'k erdi lantegi erdiz denda zan toki on bat gure errian lortu eutson, bere esku izan zeitekean.

Bide ontatik Ogerleko erriko tximistalari ta edozertarako gizona billakatu da. Errian iturriren bat atondu edo leioko leiar barriak ipiñi bear diranean, Ogerleko deitua izaten da. Baiñan bere lan kutunena tximistalaritza da ezpairik gabe, ta au egiztatzeko ez da besterik esan baiño, inguruko errietatik sarri dei egiten dabela. Langille trebe ta benazkoa danez, lan asko izaten dau bai ta irabazte politak be. Orain erriko neska maratz batekin zertu da ta luzaro baiño leen, On Yoseba'k bere lagun miñak, ezkonduko ditu.

Leen aipatu dodan lez, Ogerleko eiztari porrokatua da... baiñan arlo ontan ez dau bere aita zanaren trebetasuna, bai zera...! Ua bezelako eiztaririk topatzea zailla izango litzake benetan, eta bere semeak ez dau aren eizarako doaia, ez urbiltzekorik ere...!

Lizarmendi'ko bazterretan ba-dira oraindik erbi batzuk, eta oneitariko bat askotan Ogerleko'ri agertu yako. Au gertatzen dan bakoitzean, unetxu batez belarriak zutunik erbiak beg bizi baltzeranakaz gaztea irri-par antzera begiratzen dau, ta yarraiki, Ogerleko'k zirkiñik egin baiño leen, tximist baten antzera igesari emoten dautso, beresietan ostentzen dala, aita zanaren zizpa erbirantz zuzendu aal izan baiño leen. Basabere au Ogerleko'ren buruaustea da, ta askotan erritarren aurrean erbia aipatzen dau. Nabari da izan bere, Lizarmendi'ko erbiak mutillan nasaitasuna kendu egin dautsola, ta onek, egunen batean atzituko dauela, berekiko zin egin dau.

Agobero ospersuak bere zin egin dau, bai, zin egin dau Ogerleko'k arrapaturiko erbia, gordiñik, larru ta guztiz belarrietatik asita buztaneraiño irentsi egingo dauela. Agobero'ren eupadak eiztaria bere onetatik atara dau, ta arrezkero ez dauka beste asmorik dana-dala erbi madarikatua arrapatzea baiño.

Eiza-txakur bat ba'leuko... Bai, egunen batean eiza-txakur on bat yaritsiko dau, ta orduan Agobero'ri, erbia larru ta guztiz yan-araziko dautso. Bai orixe...!

AGIÑALDE'KO TXEPETXA

MENDIZALEAK

Inguru onetako mendigoizaleok, geure jai bat ospatzen dogu urtero. Jai onetan, igaro dan urtean sariketaren bat —mendigoizaleen sariketaren bat— irabazi dabenai, euren saria emoten jake.

Igaz arte, Zaratamo erriko frontoian eroaten izan da au, baiña igaz, Ganguren taldearen ogetabost urteurrena izan zan eta, Galdakano'ko Elejalde'n izan genduan.

Aurten, Padura taldearen ogetabost urteurrena izan dan lez, Arrigorriaga'n ospatu dogu jai ori. Padura'k zuzendu ta Baskonia, Edesa, Osea ta Ganguren taldeak lagunduta.

Au zala-ta, Orrilleko bederatzian, igande goizetik, egin genduan Arrigorriaga'rantza. Amaikak inguruan eldu giñan Arrigorriaga'ra. Eguraldi on-ona be ez egoan, esateko moduan; baiña tire!

An ebizan erriko neskatillak kantzer-gaxoa eukenentzat batzen. An eskegi euskuezan papertxu batzuk, paparretik zear dindilizka. Amaiketan zala jai ori ta, aurreratu giñan plazako arkupeetarantza. Jakiña ta, eguraldi txarra izan ezkero, arkupeetan izan bear.

Gu eldu orduko, gertatuta egozan sariok. Taldebakotxekoak, mai batean, ederto tolostuta; bai kopa ta medalla; dirdiratsu.

Asko gengozan: andra, gizon, ume ta gazte. Padura'ko lendakari Erramon'ek, sarrera lez, itzalt txukun bat egin ondoren, «Etorri» dantza-taldeko gazteak, euren oiñ errez eta bizkorrak erakutsi euskun zan. Dantzak amaituta, sari-emotea asi zan. Urte asko izan ziran sarituak, Padura'koak batez be.

Azkenez, Arrigorriaga'ko txistulariak, euren pe rru, triki-triki ta biribilketakaz agurtu ginduzan.

Ederto danok! Baiña, geiago bear doguz oraindaño, benetako mendigoizale geiago. Txiki ta andi asko!

E. A. M.

KIROLAK

EGUN ATSEGIÑA

Orril onen 9'gnean jai aundia pelotazale sendian, or jokatu zan norgeiagoa, betikoa ba'zan be, beti da ikusgarria. Retegi ta Lajos, gaurko onenak ezpai bage, aurrez-aurre agertu jakuz barriz, ta orainarteko txapelduna zan, jakitunen ustez, irabaziko ebana, ta Larraintzar'ekoak irabaztea zailla ta arrigarria eritxoen.

Etxea bete-bete, zaratatsu ta giro alai baten zala asi zan azken-leiaketa au. Retegi'ren lenengo bultzakadatik, ekiñaldi baten amaituko ebala danori irudin, Lajos'ek baiña, itxumustuan, bere erakutsi euskun ta ara 12-6 bere alde ta, «Arrapa-naik»! Une gogor bat 18-17; ikusleak astoratuta. Beroana baiña, Jose Luis'ek uts egin eban, ta or joan zan zuzen bestea ogetabira. Lajos, 22-17 orregaz, txapeldun barri ta dotorea agertu jakun.

Jokoalditik ez dago ezer aundirik esateko. Larritasun larregia biotan, ta dakitena ezin izan eben erakutsi; utsak gaiñezka, orrelako jokolari on-onentzat nabarmen. Gitxi izan ziran ondo landutako tantoak, eta banaka batzuk besterik ez burutsu amaitutakoak.

Txapeldun barria, azkar estututen dana, sendoagoa ikusi gendun ta bere jokoa ezarri eban: jo-ta-kee atzeruntz. Retegi, bitartean, atzeko aldean lotuta, ta berez lasaiagoa ba'da be, asieratik irabazle agertzen zalako-edo, goitik beera etorri zan, ta txapela galdu aspaldi ikusi al-izan dogun jokaldi ikaragarrienean. Bai, ez zan joko aundirik ikusi, baiña birloratzetik nai aiña; an giñanok, bakoitza bereakin bat eginda, jokolarien gora-berak ososoan nabaitu genduzan; danok larri ta leiaz, gure mutillaren barruan ba'gintzan.

Ori danori, ta galtzaleak erakutsi euskun gizontasuna, zentzunez galtzen jakite a; bere zorion eskeintza izan zan lenengoa Lajos irabazlearentzat. An geratu zan, jolaslekuan sariak banandu ziran arte; bere «etsaia» txalotu eban, ta asarre izpirik bage ikusleok be agurtu ginduzan, ta geuk be bai benetan txalotu orretxegaitik gizon a.

Ikusi gendun baita, nola besarkatu ziran biak apalki azkenean, ta ez beste kiroletan ikusten diran ipur-jauzka ta biurri-dantza ziñesgaitzik, gure osteko akerrak berak be ezin lortu leukezenik. Ez da baiña au gaurko barria pelota-zaleen artean; pozik ikusten dogu orrela, apal eta jator, irauten dabela.

Ara ba, egun atsegiña, ta jokoaren aldetik obea izan ez ba'zan, giroak emon eutsen erantzun-bearrak dau errua. Urrengoan obeto ortik be, ez gabiltz ba gauza aundirik asmatzen, datorren urtean be eurok izango dirala esatean.

Zorion Lajos eta Retegi!

ELORRIETA'TAR XABIER



LAJOS TXAPELDUN BARRIA

Donosti'raiño eldu ezin izan garanok urrutikuskin bidez ikusteagaz konforma bear izan dogu, ta naikoa izan da berau ikustea zelango jokoa egon zan Anoeta'ko pelota tokian, giroa oso ona jentearen artean, ta begiak urten bearrrean nok irabaziko ete dauan zain.

Joko-aldi guztiko egikizunik ederrena Retegi'n besarkadea izan zan, bera, danok dakigunez, minduta egon zan baiña min danan gaiñetik bere gizontasuna agertu eban, erakutsi ederra benetan. Jenteatzaz ez dago zer esanik bere, pelota jokoko giroa benetako kirol-zaleen giroa da, ta ez bestetan lez moltso giroa, peloteari indar geiago emon bear leuskie, baiña emen be beti lez «enpresak» dira nagusi ta sarritan pelotazale alkarteari ez dautse eurak gura leuken maillan zabaltzen itxiten; esate baterako erri bateko jaietan izaten da modurik onena diru pizka bat aurreratzeko gero beste gauza batzuetara pauzu bat emoteko, baiña egun oneik «enpreseak» artuta daukoz, ta jakiña irabazteak eurentzako. Parkatu pizka bat aldendu ba naz asi nazan gaitik, baiña dakigunez ez dago zer esan askorik gaurko pelota jokoatzaz bere, bakarrik urte danetan bezela txapelketa onek jente neikoa eroan ebala Euskalerri guztitik, batez bere Naparroa'tik.

Danok dakigu Retegi ta Lajos gorengo maillako pelotariak dirala, baita ba dakigu domekako jokoa euren maillako pelotariari dagokiona bezela ez ebela jokatu, baiña ondo ulertzen dogu zer jazo zan an, Retegi'k euki eban bizkar gaiñean erresponsabilidade guztia, ta au nai ta nai ez, oso gogorra da, Retegi ikusi gendun bere buruaren jabe ez zala, ta bere nortasun guztia galdu ebala pelotari legez Lajos neiko aurreratuta ikusikeran, tantuetan. Baiña gora bera au bertan egon zirenak ta urrutikuskin bidez ikusi ebenak ondo ulertu eben an zer jazo zan. Uste dogu, izparrangietan beintzat olan irakurri doguta, beste joko-aldi bat eukiko dabela pelotari biok, ikusgarria izan baietz!

Asieran Retegi'k atara eban pelotea, ta ekiñaldi labur bat euki eben, ta azkenez Retegi'k berak bialdu eban kanpora.

1-1, Joko polita ikusi bear gendula irudin tantu onetan, jokaldi neiko luzea, baiña emen errez egin eban tantua Retegi'k: Lajos'ek bialdu eutsan «dejada» bat Retegi'k au altza ta zabaleratara bialdu eban! besteak ezin izan eban pelota au jaso.

Emendik aurrera, utsak zenbat gura, onegaz ez noa pelotarieri meritorik kentzen, ez. Argi ikusi genduan alegiñak egin arren bai bateri ta bai besteari gausak oso txarto urten eutseela. Baiña orregaitik an egoan jentea ez zan asarratu. Ikusten dogu ba euskalduna kirol-zale amorrotua izan arren gauzak garbi egiten diranean naita jokoa motza izan, gizonari erespetaten dakiala, ta Gizona da errespeta bear doguna, naiz eretxiak diskutidu.

GOIRIGOLZARRI'TAR X.



EMAKUME ZURRENTZAT

Zure diruak irabazpide obea izan daiten erantzungo dauan Diru-oiña osotuteko, benetan arduraz dabil Bilbao-Bankua.

Gerorako aurreratu gura dozun diru ori.

Aurreratze-agiri, libreta bat geiago barik, artu zeinke.

Baiña, baita, diru-garazlari andrea, errez, ziur eta benetan egin zeinteke.

Orretarako Mobiliaria diru-eraltze Oiñean, erkide lez, zeure dirua ipintea aski da.

Trebe-talde batek zuretzako irabazbide onenak aztertuko ditu eta, beste erkideenakaz batera, Bolsa-etxean etorpiderik onena dauken diru-gaietan zure dirua ipinteko arduratuko da.

Iru illabeterik bein, trebe-talde onek zure izenean egingo ditun artuemonen irabazi garbia artuko dozu.

Zure dirua geitu egingo da eta zuk, geituten ikustea baiño beste ardurarik ez dozu izango.

Gure edozein lantegitan bear dozuran barri zeatzak emongo dautzuez.

Diru-oin barri au, benetan, emakume zur eta argientzat da.

BANCO DE BILBAO BB

Onek andren eskubideak onartzen ditu.

Autorizado por el Banco de España n.º 8039.

IDAZTI BARRIAK

Egillea: A. Arrinda.

Izena: Euskalerri zaarra. (Gu euskaldunok).

Irarlea: Editorial R. M. San Gervasio, 24.—Barcelona.

Banatzaillea: MARGO Distribuciones. Aldamar, 34.—San Sebastian.

Aldia: 1969'n. zemendian.

EGILLEA

«Ez degu au, A. Arrinda'k gai ontan egin dauan lenengo liburua. Leen ere ba dauka egiñik beste bat, aundiagoa *Religión prehistórica de los vascos*». 7'n. orriladean eta Itzaurrean diñoskuz berba oneik gure Lekuona'tar Manuel'ek.

Ezaguna dogu ba, bere idaztien bidez, gure Arrinda. Eta oraingoan be euskeraz idatzi dausku. Ba dakigu euskalzale dana eta idazle ona dala be ba'enkian. Abadea da ta Deba'n txanburu entzun dogunez.

IZKUNTZEA

Izkuntzean erdi bide bat artu dausku, gaurko nastearen barruan, Arrinda jaunak. An, or, emen **h** batzuk sartu dauskuz, baiña ez asko. Esaterako izen-orde erakusleak **h** barik eta izki bakarti, bokal, bardiñak **h** erdian dabela, ta beste **h** batzuk bere bai. Eta zergaitik idaztiaren izenean **zaarra h** barik eta gero barruan beti **zaharra h**'gaz? Bildurra? Zalantza? Bide ori artzen dauanak arerio asko izango ditu: **h**'zaleak gitxi erabilten ditulako izki oneik, **h**'bakoak, ostera, batzuk darabiltzalako. Egillea erdi-zalea ba'da, artu begi atxea **historia** ta **prehistoria** ta Rh idazteko, ez geiago. Orrelan. egiten dau sarreran Lekuona'k. Baiña ez **ahalmena** (11'n. orr.) **zahar** (12'n. orr. eta edonon), **nahasian** (12'n. orr.), **lehen** (12'n. orr.).

Idazkeran be ba dira zalantzak. Au ez da arritzekoa, bide ziurrik ez dagon ezkero, baiña norberarentzat, beintzat arau batzuk, beti bardiñak izatea ondo litzake. Ikusi: 13'n. 9rr.: Euskalerria ezagutzen **badegu,** 29'n. orr.: bear **bada**, balio ba'du. 27'n. orr. Beren berri ba'dakigu.

Izkuntzea oso erreza ta atsegingarria da. Idazti au edozein irakurlek, Bizkaikoa naiz giputza izan, pozik irakurriko dau eta errez aditu. «Oso irakur errexa bait da irakurtze errexenak maite dituanarentzat ere», diñosku sarreran Lekuonak.

Oso ederto idatzia da ba liburua eta atsegiñez irakurtzekoa.

ELBURUA

Barandiaran'ek eta beste billatzaille askok billaketa sakonak egin dabez gure erriaren izaereari buruz, baiña euren liburuak, bear ba'da sakon samarrak eta apur bat ulergatxak batzuentzat izan leitekez. Onetan Arrinda'k lan ederra egin dau: jakituria erriaganatu, euskaldun ze-zeen aurrean jaki gozo lez ipiñi.

Nik uste dot ori zala bere elburua, ta osoosoan lortzen dau. Esaterako osagille ospetsuak Rh'ri buruz egin daben billaketa labur-labur eta argi-argi dakar; baita antropologoak giza-soiñari buruz egin dabezan billaketak, etnologoenak, kondaira-zaleenak... Bearrezko lana zan eta ondo egiña dator.

EGITUREA

Lenengo, Lekuona'ren sarrerea. Idaztia oso ederto aurkezten dausku. Baita eretxi batzuk zalantzara eroan be: Esaterako, euskaldunak euren kondairan euskal-barrurik izan daben ala ez. Lekuonak baietz uste dau, Arrinda'k ezetz.

Gero liburuak ataka bat eta zazpi zati ditu: Zenbat gera?, noizkoak gera?, nun giñan?, gure aurrekoen oiturak, aztikeri ta sorginkeria, «Mari» sorgin guzien erregiña Mari'ren menpekoak. Gero bibliografia, laburra ta aukeratua.

IRARKEREA

Azal orlegiz, gaiñea izki baltzez eta ikurrin bat erdian. Barrua argi-argi ta arrokeri barik. Polito irarrita dago, eta irar-utsak oso gitxi dira.

Edozeiñek errez irakurteko liburua da, ba, Arrinda'rena eta euskaldunok geure izakera berezia ezagutzeko egokia ta bearrezkoa.

OLAZAR MARTIÑ'EK

Euskal-Antropolojiaren lenengo astea

IDAZTI EDER BATEN

Kondaira aurreko euskal-gizona ta bere gaurko egozpena.—José María Basabe'k egiña.

Odolezko agerpenen izatea gure errian.—Au, José Luis Goti Iturriaga'rena.

Sikolugu arazoak, gizartekoak eta legezkoak, Euskal-Erriko sorginkeari buruz.—Julio Caro Baroja'rena.

Euskotarren pentsaera ta arpegikera.—Jose Manuel Barandiaran'ena.

Euskal-Sikologiaren bidez, Bertsolarien argitasuna.—Manuel Lekuona'rena.

Euskal-abestien morfologi ta berezitasuna.—Francisco Escudero.

Gure Erriak legeari buruz daukan zentzuna.—Adrian Celaya'rena.

Kondairako mende bitan, euskotarrei begira.—Andres E. de Mañarikua'rena.

Izkuntza ta Kultura.—Luis Mitxelena'rena.

Euskaldunen Arri-aro ta Erdi-aroatzaz gogoketa.—Ignacio Barandiaran'ek egiña.

Bilbotar eta Bizkaitarren arteko betiko bekaitza.—Manuel Basas'ena.

Legen-eria, Euskal-Erriko erromatarren artean.—Juan Maria Apellaniz'ena.

Euskal-arrantzaleak Terranovan, XIII'garren aroan.—Vicente Palacio Atard'ena.

Euskal-Errian geure arteko artu-emona.—Miguel Angel Astiz'ena.

Aurretikako ikasiak eskualde baten.—Leopoldo Zugaza'rena.

Aintziñako Bizkai-euskalkiatzaz dakiguna.—Alfonso Irigoyen'ena.

Martínez de Landecho bizkaitarraren nortasuna, Guatemala'ko lendakari bezela.—Carmelo Saez de Santamaria, S. I.'rena.

Gipuzkoako mendi-gunetan, adarduntzarrak.—Jesus Altuna'rena.

Euskal-erti errikoiatzaz gogapenak.—Luis Pedro Peña Santiago'rena.

Euskalduna kiroletan.—Fernando Maria Mugica'rena.

Sorginkerizko erabideak, gaurko kistar-egiñetan.—Angel Irigaray'rena.

Artzai-bizitzaren zertzeladak eta larre-aldaketak Euskal Errian.—Fermin Leizaola'rena.

Kell eta Duffy odol-agermenak euskotarragan.—Jesus Moya'rena.

Euskal-Erriko Arri-aro ta Erdi-aro aurretiko barriak: Naparruako Urbasa ta Olazagutiako meatzak.—Enrique Vallespi'rena.

Lan bakoitzaren amaieran, itzulpen-laburketak dira, euzkeraz, gazteleraz, prantzeraz, ingelanderaz, alemaneraz, errusieraz eta japoneraz.

Eskatu **«La Gran Enciclopedia Vasca»'ra,** — Apartado n.º 1.510. — BILBAO

ABRAAM'EN SEME... ISMAEL

Jakin gura bizia sortarazten daun izenpuru orixe dau Andoni Labayen jaunak ointzu antzokiratu daun antzerki politak. Emen eta an zabalduta ikusi nebazan iragarpenetan Ismael'en ama zan Agar'en izena be agertzen zan bai eta Errebeka ta Ezekial'enak be naiz ta Sara ta Ixaka ez zirala agertzen.

Alde batetik ori dala ta, eta bestetik Labayen adizkidearen lanak beti garrantzitsu izaten diralako antzokiratuteko gogo bizia bururatu yatan. XVI gixaldian Zubero ta Lapurdi'n ain entzute aundikoak ziran «Pastoralak» gure artean berpiztuko etxe ziran? Labayen jauna Jean d'Etxeberri'ren jarraitzale edo berpiztegille agertuko ete yaku? Bada ezpadan ASIERA deretxan Idazti Deunaren XVI atzalburua adi ahal irakurri neban eta Olabide Abeak atzalburu orreri egiten dautsan oartxua irakurri be bai. Bide batez esango dot oar orretan Olabide Abeak Errebeke'ren izena emoten daula Errakele'rena emon bearrean.

Antzokian bigarren erkadako lenengo jarlekua lortu neban. Oste aundia zan antzokia ondo beteta egoan. Zine tresna edo argazkigille batetik Abraam'en lurrak tako oiturak; Agar eta Ismael antzoki aurreko alde batetik bestera igaro ziran eta Abraam'en aldiko jantzieraz jantzita igaro be. Ni gero ta sakonago barruratuten nintzan Abraam'en aldietan. Onetan nengoala eta oyala jaso baiño lentxoago an or Jon Ugutzalea agertzen dala osteai euren obenakaitik garbai izateko eskatzen eutseela. Agertu be katamotz-narruaz jantzita agertzen da. Auxe izan zan lenengo ustekabetxoa. Begi ta belarriz Abraam'en aldietan nengoala Ugutzalea begiaurren agertzea. Ez ete-zan au aldi-nasketa edo «anakronismo» bat? Jaso eben oyala ta aor Agar eta bere neskame Sopie sukaldean elkar-izketan. Gaur-eguneko sukalde da, gaur-eguneko jantzieraz jantzita dagoz, gaur-eguneko autukaldia darabille, Ismael'en aziera zelakoa izan bear dan aztertzen diñarduela. Orduan konturatu nintzan Labayen jaunak ez zuala Pastoralik **egin gura, Labayen jaunak Abraam aldiko bitxi batzuk gaurkoeratu nai ebazala «aggiornamento» antzeko bat egiñez. Eta aor Abraam beraxe gaurko jauntxu bat lez Agar bere maiteagana iribarreka doala eta mostrenkoberotxuak bere arpegian jartzeko. Ez gagoz ba, Abraam'en aldietan, ez gagoz Jon Ugutzaria etorri baiño XX gizaldi lenagotan Gaizkatzallea etorri ta XX gizaldi geroruagotan baiño. Labayen jaunak «gaya» Abraam'dik artu dau, baiña gai ta bizikera ori gaurko gizartean berpiztu ta erabiltzen dau. Orregaitik Itunben zarreko jaunkunak ez dauz Mesopotamia'ko legeen eraz etsi ta ebazten Josukristo'ren lege-araubaizik. Orretarako ekarten dausku Jon Ugatzalea, orregaitik Abraam bera be laster be laster agertzen yaku damututa, negarrez, bide okerrak zuzendu gurarik. Labayen jaunak artez darabil jazokun ori; Abraam'ek bide okerrez ludira ekarri eban mutilla bide zuzenez sartzen da bere aita ta amaren etxean. Antxiñako Abraam jaunak orduko lege-baruz bere Ismael lortu ba'eban gaurko Abraam onek be lo gera jo bearra eban eta damu-bidez Jaungoikoakin adizkidetu zana giza-lege-bidez be zuzentza lortzen dau bere legezko emazte Sara iltzen danean. Orduan eta bakarrik orduan Agar bere emaztetzat artzen dau eta bear dan bidez artu be.**

Nire eretxiz ba, antzerkiaren aurkezpenak antxiñako usain larregitxo dau eta usain ori sakondu ta indartu egiten da bertan emondako ikusgayakaz; baiña antzerkia bera ondo asmotuta dago ta bide onen erakus-bidea da. Oartxo txiki batzuk egingo neuskioz bere Don Abraam, Don Isai, Don Narziso ta olakoakaitik. Ez eta da askoz be oba Abraam jauna **ta Isai** jauna **ta Narziso** jauna **esatea? Eta zegaitik esan etxeko** señora **geure-geurea dan etxeko** andera **daukagunean; zegaitik esan «señorita» geure «anderaña» daukagula; naiz ta gaur tamalez itz ori larregi estutu dogula, izen ori umetxoen irakaslemeai bakarrik jartzen dautsagunean? Irakasleme itz luzea dala? Señorita ta irakasle'k baiño izkin bat bakarrik geyago. Bat edo da asko. Erriak orrela esaten daula? Bai ta K-O-Ñ-O be erriak esaten dau orregaitik guk be esan bearko? Oiturea dala? Zer ete-da oiturea? Urte askotxo dira gai onetaz EUZKEREA'n idatzi nebala. Kintilian kalagurritarrari jarraituz. (Ikusi EUZKEREA 1.929, 231'gn. ingoski ta a.).**


Antzerkitzaz diñardugun ezkero, antzerkilariak ezin doguz albo batean edo bazter baten itxi. Lan polita eurena. Ez dot esango Stratford-on-Avon'eko Shakespeare'n antzokiko antzerkilariak beste ondo jokatu ebenik; baiña bai, ondo jokatu ebela ta euren lana txalogarri izan zala. Batez be Sopie'k eta apaiz jaunak. Bigarrenau egizko apaiz-antzo egertzen zan eta lenengoa gatzez eta maltzurkeriz be betetzai itzai indar bedegartxoa emoten. Abraam jauna be ondo, baiña puzka bat lotuta-edo. Agar be bildurtiegi edo lotsatsuegi; Errebeke bai ausarti ta biotzkor, baiña biguntxoago jokatu legikeala deritxat; Narkis jauna osagille argia agertu zan, naiz ta guruagoastuntxoa leporatu eutseela-ta be; Ezekel morroskoa ondo, gaurko gazte askok agertzen ez daben zuzentzaren maitetasunez ta Ismaeltxu koitadua gozo-gozo bere arreba barriaren maitetasun zintsoaz. Guztiontzat eta batez be antzerkigillearentzat ta rionak. Azaldu dodazan gauzatxu batzuk aldatu ezkero edonork eta edonun gorabeduko daun antzerkia da. Aurrera beti ta ekin.

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

IZT-EUNDUAK

(IX)

Etxebarria'tar Juan Angel



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Euskalerriko arraza gaitzetsia.—B: Iñork egiñarazota.—D: Izaki emearen laguna; Españiko idazlea (a. a.).—E: Gura; Urte-kopurua.—G: Arpegi-atala; Itz lokarria.—I: Kontuak garbi; Ibai-ondo.—J: Adar-joka; Zear-galdera.—K: Lan ikusgarria.—L: Arri-auts bat (a. a.).

GOITIK BERA.—1: Euskal abedea.—2: Erazkoa.—3: Artu (aginkeran); Lo egitera.—4: Gain alde; Aldi-epea.—5: Janari; Kilkerraren otsa.—6: Lagunarteko esaerea; Pozik (a. a.).—7: Euskal-olerkaria (a. a.); Atzizkia.—8: Eibar'ko auzoa.—9: Mendiarteko zelaigunea (a. a.).

VIII'ren agerpenak:


Zearretara = Eladi. — Ezagutu. — oG. Betule. — Kala; Erpo. — Ele; Bir. — nagi. Biar. — Eredua; nO. — Iduriko. — Ira.

Goitik bera = Okene. — Egalari. — E. Legedi. — Laba; Edur. — agE; Ura. — Dut. Bait. — Iturbi; Ki. — Ulpiano. — Eorro.

ASMAKETEA

(VI)

Garatea'tar M. Luisa



NOR DOGU IDAZLE ANDIENA?

V'ren egerpena: **Agintariak.**

ERRIETAKO BARRIAK

Mungia

Zarauzko «Oleskariak» taldea Mungia'n izan dogu.

Maietzaren bian jai-aldi jator, eder ta indartsua egin zan Mungia'n «Ibaigane» zine edo antzer-tokian. Ibaiganeko saloia jendez beterik egoan eguerdiko amaika ta erdietan. Egarri berbera zan guztiena, euskal biziaren egarria. Gure lurrak liortu ez daitezan, udabarriko euri zaparrada eder ta ugaria izan zan gure barruen suspergarri.

Jai onetan arte artzailleak ume ta nagusi oran. Lenengo, erriko umetxoak gogoratu daiguzan. Ainbat eta ainbat ume guri ta alaitsu agertu jakuzan euskal-erriaren bizia zrala agertzen. Abestia, maitasuna ta poza zabaldu eben gure artera.

Ondoren, teatro edo antzerki bat egitera agertu ziran erri zaintzaille begi bakarra ta beste iru-lau ume. Bakardadea, iñor eza; zer an a, jai-aldiko egunean erriko plaza umerik barik, zaratarik bage, il da. Baiña laster umeak eta umeak agertu ziran euskal-erriko plazara. Zelai guztia bete zan umez ta alaitasunez.



Zaratea ta maitasuna zabaldu zan inguru guztira. Euskal-erriak ba-ditu umeak euskeraz mintzaten dakienak. Txalo ta txalo otska, erria eurei begira jarri eben. Aurrak, kin beti, itzez ta abestiz Aitorren izkuntza zarrari!

Nagusiak aldi bitan saiatu ziran. Lenengo ekiñaldian lenagoko euskal abesti zarren arnasa garbi indartsua agertu zan. Beti euskaldunena ta biziz beterikoa. Aldrearen alkartasuna, ondo egoki, agertu eben. Abots ederrak, eta ondo, eziak. Gure abesti zarren indarra ta gozotasuna, atsegiñez, sartu zan erriaren barru-barrura.

Bigarren sailleko kantuak auzartagoak izango ziran gaurko bizi-giro ontarako. Biziak, dar-dar, egiten eban udabarriko zugatz biziaren antzera. Barriztatu, indartu.

«Oleskariak» egiz dira abeslari. Abotsez eder ta musika sentzuz, ondo, landuak, euskal abesti jatorrei biziaren edertasun ta gatza, egoki, ezarri eutsoezan. Erri baten bizia eurak asmau ta ingurukoei emon euskuen abestuera berezi baten bidez.

Abestu gazteak erriari, abestu maitasunez. Erriak poztu kantatuz, erriaren egizko bizia agertuz. Arnasa barria sortuko da, egi biribillak esanez. Maitasunez jarrai abestuz, egi billa dabillen gure erri minberatuari.

Kantu artean ikusi ta entzun geuntzen zerbait zoragarri ta bakana dana. Txistularirik ez errian ta plazan, ta mutillak ezpanen bitartez txistua joten eban, arrigarriro, jendearen pozez.

Abesti ta antzerki bitartean kitarra joillea be izan genduan. Euskal tajuko gazte lerdena da Zarraga. Berezko doi ederrak ditu. Ez gizonek emonak, biziaren jaubeak baiño. Abots lodi berakoa dau ta berarizko entzumen zoragarria. Doai eder bi onek alkartuta, Zarragak gogorik onenakin euskal-erriaren bizia abestuko dautse euskeldunei etorkizunaren poz eta nekezko egunetan.

SOLOZABAL'DAR PAULIN

Zeberio

Ospatu barriak dira Gurutze Deuna'ren omenez erri-barrenean urtero izaten diran jaiak; Orril'aren batean, bian eta iruan.

Lenengo arratsaldean asi ziran, barriz erakusten zeberiotarren alaitasun garbia, euren kirolak eta jolasak. Asierea, kanpai-jote ta sutots-txipristadakaz emon yaken, eta ondoren txistularien kalejirea, euren inguruan eusko oiturako jantziz apaindutako neska-mutiko ta jendetza lagun ebezela. Jarraian, ikusgarrizko soka-tirea Arbildu'n, erribarreneko Olatxu, Arkulanda ta Arbildu auzunen artean. Onen ostean, dantzaketa bizia.

Illaren bigarrenean, goizean, txistularien kalejirea barriz txaidea zear, eta onen ondoren Meza nagusia Gurutze Deuna'ren txadon apaiñean. Meza amaitu zanean, Ugao'ko «Etorki» eusko-dantza taldekoak dantzatu eben ondo baiño obeto, egunetik egunera dantza bikaiñok obetuten doiazala, ta ori zala bide, guztiz txalots beroak artu ebezan kementsu orreik. Dantzarien ondoren, erriko seme gazte bik, Intxaurraga'tar Yon-Iñaki'k eta Etxebarria'tar Yon-Imanol'ek bertso aldi bat emon euskuen, ederto baten egin be! Garrantzitsua da au, ia aldenduta dagoalako antziñako gure oitura jator ori.

Arratsaldean, euskel-abesti saio bat ospatu zan: Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Mikel Laboa ta Ander eta Patxo izan ziran beti lez, txukun abestu ebenak. Eta abeslarien aurkezpena Abel Muniategi ta Jose Mari Arregi'k, bertsolari goralgarriak egin eben. Adoretsua izan zan euskel jai au, bertaratu zan gaztediari eskerrak eta inguruetako errietatik etorri zan jentetza aregaitik, bizitasun osoan emonaz amaia igandeko jaiari.

Irugarrenean, jaiaren amaierako egunean, besteetan legez, txistularien kalejirea goizean ta biribilketea erri-barren guztitik zear, eta mezea Gurutze Deuna'ren basoeleizan. Egikizun ongarri au amaitu zanean, umetxoentzako jolasketak egin ziran Arkulanda'n. Gero, larunbatean lez soka-tirea, baiña ezkonduak ezkongaien aurkakoa, eta nork esan leikean! Ezkonduak irabazi eben... jaietan obeto jagon ziralako-edo? Emakumeak be euren soka-tirea izan eben, ta or be ezkonduak geratu ziran irabazle. Ikusten danez, alkar obeto artuta aurkitzen dira ezkonduak, gu ezkongaiok baiño, naita euren kezkatxoak be izan arren, bai orixe!

Jolosak amaitu ziranean, oturantza, jataldi orokorra gazte guztientzat Olatxu'n, eta zelako jateko naieza!!! Dantzaketa bizi bategaz amaitu zan aurtengo jai-aldi bikain ori.

Atsegiñez ikusi doguz Zeberio'ko erri-barrenako jai polit oneik, eusko-giroa non-nai ikusi dalako. Errez ikusten da erri ontan erein zan azi on arek landara bikaiñak emon dituzala, ta orretara izanik, maitekor ezi daiguzan landarok Erria'ren osasungarritzat.

Gure zorion samurrena, antolatu dabenei, gaztediai ta euren laguntza eskeñi daben guetiai. Ta ia datorren urterako poztasun aundiagorik emoten dauskuen.

KOLDO

Zeanuri'tik

Oraingo zati au jai txiker bateri buruz idatzi gura dot.

Atzo, loreillaren bian, Zeberio'n, Gurutze deunaren jaia egin zan. Arratsaldean, lenengo bertsolariak eta gero abeslari euskaldunak. Oneik Patxo Villaro'koa, Ander San Kristobal'goa, Lourdes Iriondo, Xabier Lete eta Mikel Laboa.

Gu arratsaldeko zortziretan joan gintzazan eta an Nerbion eres'batzak erromeria alaituten eban. Ara eldu giñanerako eres'batzaren zuzendariak barri eder bat emon euskun: Arratia'ko neskak Durango'koen aurka baloi-joko bat euki ebela eta Arratiarrak Durangoarrai amasei ta bat be ez irabazi eutseela. Gazteak orduan txalo eta txistu egin eben, au gauza aundia zan eta.

Jantza batzuk egitera joan giñean ba, eta neska alaiak egozan. Ondo ibilli gintzazan.

Dana zan ona niretzat, iru gauza izan ezik.

Lenengoa, jantzan egitea ordaindu egin bear zan eta Abeslari euskaldunai entzutea be bai. Gaur, neure lagun bategaz berbetan nagoala, auxe esan daust: Urtean baten izan erri orretako jaiak eta jantzea ta abestiak entzutea ordaindu egin bear... Non dago Aiuntamentua jaiok egiteko edo abeslarientzat diru apur bat emoteko?

Bigarrena, motzen sariketa egoala esan eben eta gero ez zan egon. Zergaitik? Zeberio'n motzik ez dagolako ala lotsorrak diralako? Baiña motzak be bizi bear dabe.

Irugarrena, zelan Zeberio'ra joan? Eta gero etorri? Egunean autobus bi edo iru dagoz, eta eurak barekurloa baiño astiroago dabiltz. Orregaitik gazteak kotxeetan joan bear eta dirua ugari bear. Jaietan autobus geiago ipiñi bear leukaez gazte geiago joan daitezan.

JESUS ASTONDOA'K

Arratia

ERRI-ZUZENDARI BARRIA

Endoretza edo alkatetza esku-aldatua izan da Areatza'n, eta lemazain barria Garibi jauna dalarik, erri osoa agertzen da pozik eta itxaropentsu; errikideentzat onurakorra izango dalako ta eskubide ta neurri bardiñak guztientzat; baltz eta zuri, aker naiz ardi.

Arazo ontarako leen izan eban deiari ezezkoa erantzun eutsan ezkero ta baiezkoz oraingoari, oiñarri sendoan tinkotua dala uste ziurra dogu. Gizabide arauak betearazo ezeze, betetuten be jakingo dauala, ta lupudun ezten zirikatzaleentzat, urte batzuetan, zeregiñik ez dala izango.

Bigarren aldizko bateoan jarritako erdelizenagatik edo... aspaldidanik izan da, ta da, Villaro erdel-lur samurra; gaztelera gizon da, ta euskerea atzerakadan. Aldi onetan baiña, gaztediak nai ba'dau, beretuko da, goi-mailako ostoporik ez dau izango; erria nagusiarentzat eta nagusia erriarentzat izango dira.

Agur eta zorion, Gabiri! Auzo-errietako lemazaiñentzat eredu bizi ta argi dizdizkorra izan zaitezan, osasunak lagun dagizula.

PATXO

Areatza'ri buruz ari izan naizen ezkero, mutil onen izena ta lana aitatzekoak dira.

Patxo'k, izan dan toki guztietan gartsu txalotuak, kitarra ta abestiz gaztediari euskallanda'ra deika diardu, eta garai-ikur, sari ta txalo askoren artean, bat geiago jarri al izan dau: «ABRA III» izenekoa.

Patxo non, gazteak an, izaten dira. Euskerari ta Erriari abestuten dautso. Abestiak zati berezi bi ditu: belarrientzat gozamena ta biotzarentzat janaria diranak. Janaria, abestiaren esan-naia edo mamiña bera; aguro uxatzen dira baiña gazte buruariñen barrenetik, eta gure jaien ondorenak eta lorratzak, motzak eta laburregiak sarritan edo maiz, mamiña ta janaria ausnartuten ez dakigulako.

Ekin egiok ba, Patxi, bide orri: «jagi, jagi... lotatik» gaztediari dei egiten.

ERIOTZEA

Euskerazale osoa ta bete-betea izan dan Arregi'tar Gabirel, AGUR'ekin arpidetua, joan yaku betirako (G. B.)

Illeta-eleizkizunetan izan zan notintza ugariak, ondo argirik iragarri eban gizon ona ta adizkidetsua izan zala. Lur zuldartsu ontako lan eta nekeak Bilbo'n amaitu zituan, eta soin-ondar ilkorren azken-tokia Bernagoiti'ko illerrian izan dau.

Aldizkari onen bitartekotasunez otoi beroak Gabirel zanaren alde, ta atsekabe-agurra bere sendi saminduari.

SANTSON BAIÑO SENDOAGO

Urteen burpillean belaun bizi izan ondoren eta aldi onetan entzuna dan esakera zarra: «Arrati'ko zekorra txikerra baiña gogorra» egi biribil eta osoa dala agertu dausku Bilbo'ko Atxuri'n izan dogun ezbearrak; etxe zar baten barren-zatia bera etorteak.

Esakera zarra indartu dauana baiña, ez da zekorra izan, gizona da. Ez da txikia ta erkiña be, morrosko ederra da-ta. Goian izan zan sapaiak azpian artu, ule ta oin, soin guztia estaldu. Azurrak ausirik, mailluzkaturik eta eriotz-ayotza lepoan eukala, eriotzari igeseginda, osasun-bidean aurrera egiten ari dana, Lemoa'ko Mimentza'tar Zelestin da; mendi eta basoetako bidetxiorretan ezaguna, euskera zabaltzale jatorra ta AGUR'en arpideduna. Santson baiño gogor-sendoagoa.

Astitsu ta nasai bizi dan adizkideen batek ikusteko erarik izango ba'leu, ona emen zaurituaren zuzenbidea:

Perez Galdoz txaide-kaleko San Antonio osotetxean, 3'gn oiñean, 311'gn atean.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

Erri ontako Andra Mari'ren txadon ospetsuan aldamenean, asi barri dan Jolaseta dala-ta, inguruak landuten asi ziranik ezkero bildurrez egon gara: zein zori izango ete eban, txadon ortara eldu baiño irurogei bat neurkin lenago aurkitzen zan, Gernika'ko Zugaitzaren landareak, pizkat ezagutzen doguzalako burutasun batzuk; gure bildurrak egiztatu egin dira tamalez. Areitz kondairatsua, apainduta ipiñi bearrean, sustraitik atera, ebagi, ta egur metara jaurti dabe.

Areitz edestitsua esan dogu ta alantxe zan, azalduko dogu zergaitik: Eleizara eldu baiño lenago, bertara goazan bide alboan, Asua'ren etxean atzeko aldetik egon zan areitz mardula, azken aldiko ogeita amabost urtietan, lenago, «Guzur-Aretxa» ospetsua egon zan leku berberatan.

«Guzur-Aretxa» zarra zan, bosteun?, zazpireun?, edo urte geiago ebazana, iñork ez ekian zenbat. Ospetsua eta maitagarria galdakanotarrentzat, gaurko erritarrak baiño gure aurrekoak maiteago ebezalako euren gauzak. Antxina, gaur errian daukagun Udaletxea egin baiño lenago, zaarra da berau be, zugaitz aren azpian eta eleiz zaarraren aterpean egiten ebezan batzarrak erriko gizon eta agintariak, bertoko gora-berak eta arazoak erabagiteko. Udaletxea egin zanik, ez ziran geiago orretariko batzarrik an egin, baiña leenagoko oiturak jarraitzen-edo mezatara joaten ziran notiñak, batez bere adin pizkatekoak, igandeetan beeko txadon nagusia egin aurretik, areizpe ortan batuten ziran, alkar agurtuaz, euren baserri ta erriko gora-berataz izketalditxo batzuk egitek, eta ortik etorren ezagutu genduan «Guzur-Aretxa'ren» izena.

Lenago esan dogunez, maite eben areitza, erriko ikurtzat lez eukelako edo, ta orretara erakutsiten emon eben gure aurrekoak aldi baten. Ez dakigu ziur lenengo ala bigarren karlatar gutaketan izan zan, aboz-abo gugana etorriko albistea da-ta, eleiz inguruan gudaroste bat egon ei-zan luzaroan, eta inguruko egurrak erre ebezan, berotuteko edo euren janariak gertuteko, «Guzur-Aretxa» be ebagi nai eben, eta adar batzuk ebagi be bai, baiña ori zuzmurrutu zanean bertan batu zan erri geiena, gudarostean asmoak, bear ba'zan euren gorputzez eta odolez galerazoteko gertu. Galdakanotarren jokabide maitekorrak eta gogorrak zirala ikusirik bertan geratu zan areitza, orain ogeitaamasei urterarte bertan jarraitzeko.

1934'gnko Urrillean, Bizkaia'n erriak aukeratuko udalak goragoko agintarien aginduz kendu egin ebezan, eta gorritzat agertuten zan ziñegotzi bat geratu zan erriko endoretzan, zorionez ez luzaroko eta naita erriko semea izan, euzkotasunik ez eukalako, erri zaletasunik be ez, dana gorrotuten ebalako, «Guzur-Aretxa» erriak ain maite eban zugaitz kondairatsua ebagiteko agindu eutson Elexalde'ko auzokide bateri, 1936'ko Otsaillaren 6'n.

Aretxa erori ta illabete baiño len, barriz kendutako udala bere lekuan jarri zan eta erabagia artu «Guzur-Aretxa» egondako toki artan bertan, Gernika'ko Zugatzaren landara bat sartutea. Eta orretara egin zan, osperik andienaz, urte aretako Epaillaren lenengotan, orain arte egon dan aretx mardula. Zegaitik bota dabe oarin dabiltzazen apainketatan, eragozpen izan dalakoala beste batzuk sartua zalako? Ikusgarriago litzaken tokiren baten, beste barri bat landaratuteko? Orretara ba'litz gaitz erdi!

BASA-JAUN

Bedia

Ez dago geldi Bedia'ko gaztedia, zorionez jo ta ke diardue lanean eusko arloan; jolas, erri-jakinta baita euskera ikastaroan, berau ikasi ta leendik dakitenak landuten. Bedia, oraindik biztanlez txikerra, baiña ez ain txikerra egikizunetan, ez orixe! eskerrak bertoko gaztediari. Beste erri andiagoetakoen eredu izan litzakezanak diralako eurok. Zarata gitxi, ezetariko izkanbilla barik, ixilixillean lan aberkoian diarduenak.

Aspalditxoan diardue, neska ta mutiko arteko dantza talde bikain bat gertuten, Bilbao'tar Yosu mutil zintzoa irakasle dabela, ta datorran illean izango diran Yon Deun'aren jaietan, erriko jai nagusiak, egin nai dabe oztetza aurreko aurkezpena, ta ziur gagoz, garaipen osoa izango dabela bertan, gogotsu dabiltz eta, irakaslea ta ikasleak.

Antolatu dabe baita esku-pelota txapelketea erriko ta inguruetako mutillentzat, iru maillakoa da; amar urtetik amalaura arteko bata, amabostetik amazortzira artekoa bestea, ta ortik gorakoentzat irugarrena. Ainbat jokaldi egiñak dira, orreik ikustera joaten dan oztetza aundiaren aurrean, ia amaiturik izango da txapelketa au lerro oneik argitaratzen diranean, erriko jai nagusietan jokatuko da azken-jokoa.

Euskel-ikastaroak be aurrera doaz, eta gogotsu jarraitu be. Ez dabez irakasle jator orreik gura leukeen aiña ikasle, baiña, dabiltzanak benetako zaletasun aundienakin dabiltza. Bear-bada, obeto ezagutzen dabelako zergaitia ta zertarakoa, euskotarrok euskerea maitatzea.

Aa! ia aztugaiñean izan yaku: eusko dantza taldeagaz batera gertaten dabiltzan txistulari talde eder goralgarriaren aurkezpena be izango ei-da, ederto ikasita aurkitzen dira gazte txalogarriok. Beraz, asieran esan dogun lez, ez dago Bedia'ko gaztedi au geldi, eta ori da eusko gaztediak jarrai bear daben jokabidea. Ez da, «ez gagoz korporme» esatea naikoa, erakutsi be bear dau gazteak zer nai daben, orain artekoa baiño bidezkoagoa ba'da, Erriak jarraituko dau. Aurrera! Bedia'tar gazteok!

GAIXORIK

Aspaldian gaixorik dabil, osotebakuntza gogor baten ondoren, Letona'tar Dunixi euskeltzale zintzoa. Zorionez, baiña, etxetik urtetan asita da, ta laster sendotuko dalakoan gara. Orretara izatea gura genduke, bear-bearrekoa dira bera lakoak, Dunixi lakoak, Errian.

JOSU

EUSKAL-ERRITIK BEGIRA

Gaurkotasuna bear ei-dogu gain-gaiñetik: Egunerokoak baiño amar egun lenago, AGUR'ek (jorraillekoan) dolar'aren auleria ta Europara ekarran abiadearen gaitza agertu ebazan, baita Sst, egazkin aundi ori ez egiteko erabakia be, ta galdera au, ez ei-da egingo-ala bai?, or ba, «ala bai»'ko oneik irabazi dabe orain... ta gure Ozkin jatorrari ezkerrak, Canada'ko arraintza auzia be or agertu gendun.

* * *

Dolarren kontu ori, euritza bat izango zalakoan aor ekaitza be. Onetatik, europarren batasunbillarako ariñeketea. Paris'ko jokabideak esango dau, ta onek bakarrik, ea benetan doan oraingoan.

* * *

IRA'koak, Irlanda'n, gogor dabiltzaz, zatituta baiña. Inglaterra'ko guda ontzitxo bi urperatu dabez. Irlanda'k askatasuna lortuko... baiña izkuntzea galdu.

* * *

Ian Brandy, inglandar erailtzailleak, bere 71 eguneko barau-oporra eten dau Durham'eko espetxean. Ez dau janik artu nai izan eta tutu baten bidez emoten eutsen al ebena.

* * *

Yugoslabia'n, lantegiak «auto-gestion» buru-jabetza bidez eroaten dira. Orain, batzar nagusi bat izan dabe Sarajebo'n arduradunak. Lau eskubide barri emongo ei-dautseez langilleeri, oporrera urtetzea be ba'liteke.

* * *

Cuba'n, iru idazlek «autokritikea» egin dabe, jakiña, buru-zuriketea makillea baiño obea da-ta.

* * *

Rusia'n datorren illean auteskundeak. Erriak aukeratzea izango dau, Alderdiak aukeratuak aurretik. Ori dok astakasuna!

* * *

Haiti'n Duvalier lendakaria il da. Erririk txiroena ta agintaritzan dagozenak aberatzenak. Eskumako gogorkeria, ta sorginkeria... Vudu ziñesmena... ta «papa Doc»en argazkiak nun-nai, ta ipar-amerikarren «interesak»... ara demokrazia!

* * *

Rusia'ko aldizkariak Txina'ren aurka gogor: ango izparringiak askatasunik ez ei-dabe. Eta Rusia'n ba-bai.

* * *

Tatar erria bere Krimea'n bizi zan, Stalin'en aginduz Asia sakonera bota eben. Joan ziran 200.000'tik erdiak bizi ei-dira oindiño, ta etxera nai. Birritan eskatu dabe 22 eta 23'garren Mosku'ko Batzar Nagusietan, azken onetan 131.000'k izenpetuta. Baietza onek, paperean, munduari erakusteko, Tartar gaixoak baiña atzerrian, 260 sendik bakarrik lortu ei-dabe etxeratzea.

* * *

USA'n saspi milla izan dira «pakearen aldezko» erakusketatik giltzapetuak. Bearrezkoa da «pakea» baiña ez dot uste gogo aundirik dagonik.

* * *

Bilbo'ko Somera, Guen-kale zarra, Europa'ko ederrena izango ei-da laster. Barriro be txurrutean asi bearko.

* * *

Formosa'ko txinarrak, ez dabe Pekin'egaz artu-emonik nai. Ta formosar erri jatorrizkoa, zelan ete-dago?

* * *

Ejipto'n, Ali Sabri bota dabe, ta gero beste bere lagun asko; rusoen aldekoa ei-zan. Ikusten danez Goliat'en etxean izkanbillan beti. David txikia pozik!

* * *

USA'an milloi bat eta berreun milla txiro geiago urte bi oneitan. Ikusten danez, kapitalistoen artean be «txakurrak ortozik»... eredu ederra gutzat!

* * *

Arrupe Aitak U-thant'eri: «Gu josulagunok, gitxi gara, baiña eragin aundikoak. Bestelako siñistedun gizonekin lan-egiten oituta gagoz, baita siñisbageko diranekin be, alkarren artean gizarte zuzenago bat sortzeko. ONU'ko asmoak eta Josu'ren Lagundikoak bat dira». Ea ba...

* * *

Erroma'ko Centro Integrazione Linguistica Euratlantica alkarteak, bere Jorrail'eko 53'garren agirian, AGUR aipatzen dau ta gogoz goraldu be. Guk argitaldutako «Batu-Bideak» lanaren zati bat be ba-dakar. Eskerrik asko europar anai jatorrok!

* * *

Bilbo'ko Ikastola Nagusi barrirako etxegintzan diardue. Azken orduan baiña, Madrid'etik oar bat: ea kontuan dauken ur-urrean dagon egazkin geltokia; onek inguruetan, alako azpil baten antzera, gorako neurriak erabakita daukaz, ta zenbat eta urrago ta gorakada gitxiago etxeak...

BEGI-BI

LANGILLEAK

SINDIKATO ASKOTZA

CMT'en XVII Batzar Nagusi ontan ere aztertu da sindikatoen alkartasun arazoa. Gai onetzaz CMT'ek eskabide asko izan ditu, batez ere CIOSL'ek egiña. Argitu dezagun CIOSL sozialismo gizakiar batean mamitua dagoala.

Bi erakuntz auek ondo etortzen dira alkarrekin, ta borondatetsu aditzen diete batak besteari. CIOSL'ek La Haya'n egin duan azkeneko batzarrean alkartasun au aurrera eramateko gertu da, Europa osoaren neurrian eramateko gaiñera.

Eta CMT'ek, Europa'rako lendakari duanaren aoz, galderatxo au ere egiten du: «Bat-egitearen alde ala alkartasun baten alde al gera?».

Bere erantzuna, auxe: «Sindikato ekintzak dotrin bat, elburu bat bear dualarik ere, onek ez du izan bear besteekin alkartasun batera etortzeko eragozpen. Onek ez du esan nai, batasunaren aurkako geranik, ezta askotza pluralismoa gozamen bat danik guretzat, ezta besteengana bertaratu nai ez degunik, ez.

Batasuna nai degu, gure gogo sutsu ta leiala da, baiñan bearturik ematen diguten batasunik ez degu nai. Gure indar guztiekin ta eragultzen bereiztasunak onartuaz, jokabide baterako, ekintzarako batuko gaituzute. Jokabide bat nai degu sindikatoen artean, sindikatoen jokabideak asmo oneko diranean, lagun bezela jokatzen dutenean. Jokabide batera iritxi nai degu ta eskabide berdiñak egingo ditugu danok alkartuta.

CMT danaren sindikalismoak langilleen batasuna nai du, baiñan ez askotza-pluralismorik gabeko batasun bat, askotza ezak bere erraietan eramango lukealako beste banatze aundiagorako xomorro edo mikrobioa».

Benetan alaxen da: Batasuna, baiñan pluralismoa. Askotasunik gabe ez dago leiaketarik, ez dago nor-gieago izateko irrika ori. Askotasuna benetako demokrazia da; obetogo, aita-semeak. Onela sindikatoak ez bai-due lo artzerik; an arkituko du bestela, etxeko atean, beste sindikatokoa bere errotara urak eraman nairik, berengana zetozken urak langilleak izanik.

Sindikatoak, demokraziak bearturik, bata bestearen aurrean jarriko dira, betaurreko aundiak sudur gaiñean, besteen utsuneak argitara azaltzeko. Alkarrenganako beldur ori onuragarri da. Orduan jokabideak eta ekintzak ongi aztertzen dira, oker egiñak eriotzarik ez dakarkien.

Baiñan onek ez du esan nai bateratu ditezken eskabideen alde alkarrekin ez dutela ibili bear, ez dutela alkartu bear, garaitza lankideentzat ez dutela lortu bear.

Europa berria osatzeko bearrezko degu langilleen batasuna, guk ulertzen degun batasunean. Ta batasuna etxetik asi bear degu, gero auzotik munduaren azken muturreraiño eraman al izateko.

Urretxu'ko Iparragirre'k, bertsolari gogoangarriak esan zuan: «Eman da zabal zazu munduan frutua». Baiñan mundu guzitik barrena ibili ba'zan ere, bazter zoragarriak ikusi ba'zitun ere, bere abestian Aritza Gernika'n ipiñi zuan. Gaur ere, biziko ba'litz, ez det uste Viet-Nam edo Korea batean jarriko lukenik. Etxetit asita, edatu naiko zuan munduan, langilleen batasunarekin langilleen ona.

OLAZABAL'DAR XABIER

ADOREA TA UMOREA

Nik ezagutu neban abade bat, oso goragarria, bai abade legez baita euskaldun legez ere. Juan Timoteo Izurrategi jauna. 1863'ko agorreko ogeitabian Bilbo'n jaioa. Ta egun artan bertan San Anton'go eleizan bateatua. Baiña txiki-txikitatik Ondarru'n bizi izan zan. Geienak ta neuk ere bai oraintsuarte ondarrutartzat geunkan.

Gorliz'ko Sorkunde Garbia'ren parrokitik Elorrio'ko Sorkunde Garbia'ren eleizara izentatua izan zan, txaunburu bezela. Ta antxe ia berrogei urtetan erabilli eban bere gogoartzaintza.

Izlari azkar, sutsu, argia zein euskeraz zein erderaz. Igandeetako meza nagusiko itzaldia benetan zan zoragarria. Guztiak aspertu gabe, agoa zabalik ta adurra erioela arreta aundiz entzuten eutsoen. Olako itzaldi argi, labur, azkar eta bizia zalako bere jarduna. Iñoiz edo, gaixorik egoalako edo ibiltaldiren baten ebillelako, bera ez ba'zan parrokian, meza nagusia erdi utsik egoan. Gizon legez taju atsegintsua eban. Irribarrea beti ezpanetan, tolesgabea, arrokeri bakoa, guztiak bardin, naiz aundiak naiz txikiak, naiz aberatsak naiz txiroak, arreta onagaz agurtuten ebazan. Langille porrokatua ta asperbagea. Bai parroki-lanetan, bai erririk erri emoten ebazan mixiño, gogo-jardun ta beste itzaldi ugarietan.

Guztiok geure utsunetxo batzuk doguz, ta Jon jaunak ba-eban bere akats txikitxoa: Akeit-zaletxoa zala. Ta bai amaika akeita eder artu be, udatarren etxeetan. Zelan atonduten zan ori egiteko? Zer zelan egin ba-ekian. Batoren batek bere etxera akeita artzera deitzen ba'eban, beti artu ostean auxe esaten eban: «Au bai benetako akeita; gure Anbrosi'k (mirabea) ez daki orrelako akeitarik egiten!». Eta jakiña, etxekoandrearen erantzuna beti bardiña: «Ori baiño ez ba'da, Jon jauna, biar bere ta nai dozun guztietan etorri bedi».

Jesukristo bizi izan zan lur santuaren maitale beroa zalarik, sarri-sarritan egin eban Jerusalen'era joan-etorria. Baiña orretarako diru asko bear ta zelan atera diru ori, bera u parrokia aberatsak izan ezik? Meza nagusia iragarten eban: Lur santuetara erromes-ald bat egoala-ta «ni bere ba-noa ta mezak esang ditut Kristo'ren obian, Jetsemani'n, Betlen'en Nazaret'n eta abar. Eta iñork bere alde mez orretan nik gogoratuterik nai ba'dau emon beg nai daben limosnea». Ta orrela erri guztiak l gunduten eutson bere Jerusalen-ostera egin

Bere euskalzaletasuna biotzetikoa zan. Al giñez beti euskera egiten eban ta bardin idatz Bere euskerazko idazti ezagunenak iru ziran «Jerusalen-osteran semeak amari»-eskutitz u mur, argi ta mamintsuak, Jerusalem-ostera erri guztietatik amari bidaltzen eutsozan esk titzak dira liburu ortan dagozanak. «Umea lenengo Jaunartzerako itzalditxuak», ulert rrezak eta mamintsuak oneik ere. «Urtek igande guztietarako itzaldiak», oneik omili laburpenak dira. Baiña euren edertasuna b rari itzaldiak entzutean igarten zan. Ain zira zoragarriak!

Guda ondoren, beste abade asko lez, ega tua izan zan Bilbo'n. Ta antxe be, bere gogal ona ta bere bare-aldia ederto erakutsi ebazan Epailariak amabi urte ta egun bateko zigor ezarri eutsoen, eta Jon jaunari itandu eutso nean: «Epaituak ezer esan nai al dau?». Jo jaunak zutunik eta irribarretsu erantzu eutsen: «Bai, zueri eskerrak emotea bakarr nai dot. Nik irurogei ta amazazpi urte di eta ez neban uste asko geiagorik bizitzer Baiña, zuek amabi urteko bizia ziur emot daustazue».

Andik laster Dueñas'eko abadeen e petxean il zan. Baiña beti adoretsu, euskal ta abade. Jarraigarri ederra ta aztu ezin da keguna.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

ASISTARRA EUSKAL-ERRIAN

Pantzeska deuna Marroko'ra joan zanean, bide nabar, Euskalerria zear ibilli bear izan eban, gure bazter eder-maite oneitan bere deuntasunaren urratsak itxi euskuzan. Gauza zailtxoa da Asis'tar Pantzeska deuna Euskalerrian noiz eta nun ibilli zan, egi-egiz jakitea. Marroko alderako bide aldia 1213 urteko erdi aldetik 1215 urteko Azillaren bitartean egin eban; baiña orrez gaiñera, errietan diñoena besterik dakigu.

Asistar deuna Zankotza aldetik etorri zan, eta Zankotzazar'ean, Iruña'n, Gazteiz'en eta Tudel bere prailleentzat etxeak jaso ebazan, eta Donosti'n be egon zan.

Lenago Zankotzazar deritxoen eta gaur Rocaforte esaten yakon erri koskorra, Zangotza'tik bera dago, Aibar mendiaren iparraldeko egalean. Erri orren lurretan beste egal batean, etxetxo zarrakatu bat ag da, Bartolomeo deunarena esaten yakona.

Pantzeska deunari guztiz atsegin yakon baselizatxo a, eta bere lagunakaz, aldi batean, an egoten z Eta andik urten zanean, bere lagunetariko bat an itxiko eban. Orrela eldu zan baselizatxo a alde arei pantzeskatarren lenengo etxea, komentua izatera.

Edeslari batzuek diñoenez, Pantzeska berak egin eban Bartolomeo deunaren elizatxo ori, bere prailla bizitoki izateko. Asistarrak, toki onetan bizi izan zan bitartean, mirari andiak egin oi ebazan. Elizat aren ondoan baratz txiki bat egoan eta bertara, Pantzeska deunak, martzusta ondo bat aldatu egin eta zugatz onen orriak gatx asko kendu oi eutsoen. Etxe atatik prailleak urteten ziranean, zugatza ega egiten zan, eta barriro etozanean barriztu, eta urrengo pralleok joan ziranean igartu zan. Zugatz igar ondiño irauten dau ta, kristauak zati asko kendu arren, ez oi da txikitu.

Elizatxo alboan, Pantzeska deunarena esaten dautsen arri bat dago. Asistar deuna arri onetan jezarr zan arnasa-atsedena artuteko, eta berarengana yoyazan gizataldeai arri orren gaiñetik berba egin. Elizatxo eta erriaren bitartean Pantzeska deunaren iturria dago. Iturri onetako ura berak onetsi, bedeinkatu eo ezkero, sukarrak kentzeko ona oi da.

Naparroa'ko errege Santxo Indartsua, Muskaria'n egoten zan, eta Pantzeska deunak, gaxorik egola bere lagun bi, Aldeari ta Lupo Anaia bialdu zituan erregearengana, Naparroa'ko lurretan bere prailleentza etxeak egiteko baimena eskatzera. Praille biok joan ziran eta aren izenean baimena eskatu eutsen errege Nor zan eta zer erabillen Pantzeska orrek itaundu eutsen erregeak, eta prailla bien erantzun arrigarria turik eskaturiko baimena emon eutsen, eta gaiñera, Iruña'ra joateko eskatu eta ango auzoarteak baketu egiaz bere izenean.

Naparroa'ko erregearen esanera, Pantzeska deuna Iruña'ra joan zan, eta burruka gogorrean ebill ango auzotarteak onez bakea egitera ekarri. Iruñatarrak eskuerakutsiz, Errotxapea'ko Kepa deunaren zatxo ondoan etxe bat egin eben bere prailleentzat. Etxe orretako lenengo nagusi Pantzeska deunaren la bat izan zan, eta Iruña'ko ta inguruetako gizaseme asko sartu ziran lekaidetxe orretara.

Geroago, gogoen, arimen onari obeto begiratzeko, uri barrenera aldatu ziran prailleak, eta itxi e etxean, Barañain'go Andrak esaten eutseen lekaime agustindarrak sartu ziran.

Amairugarren gizaldian, Asis'tar Pantzeska deuna Gazteiz'en izan zan eta urian bertan praille bat egin eban. Uri orretara eldu orduko, gogo onakin lagundu eutsen gazteiztarrak etxe ori egiten.

Asistar gure Aita Pantzeska deuna, euskaldunak maitatu, onetsi ta goratu egin bear dau. Gure erri alde Jaunari otoitz egin dagion, Euskalerria bere lokarri zuriagaz inguratu ta gatx guztietatik aterat

LETONA



AGUR

II URTEA
½ ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - BAGILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

OPORRAK

Egualdiak ain onak ez ba'dira be, guztiok dakigu udea datorkula. Eta udeak geienentzat opor-egunak dakarskuz. Egun oneitan, lana alde batera itzita, atsedena artuko gogu.

Asieran atseden-eguna astean bat zan eta lan-egunak astean sei. Baiña gizona lana menperatuez doa eta onelan opor-aldiak ugarituez be bai. Aurrerapide au ain garrantzi aundikoa dan ezkero, ba leiteke urteak igaroaz gizonak egin oi dauan lana makiñak egitea eta orduan gizonarentzat lan gitxi geratzea. Zer egin ori jazotakoan? Egun bakotxean ordu gitxiago lan egin? Opor-aldi luzeagoak langilleai emon? Ala zarsaria lenago langilleai? Bide asko artu leitekez, baiña, dana dala, lan bagako orduak, eta egunak, eta urteak, gizonaren bizitzan ugaritu egingo dira. Opor aldiak edo atsedenaldiak geiago izango dira.

* * *

Ortik beste ardura bat sortuko da. Zer egin opor-aldi edo atsedenaldi luze oneitan?

Ardura sakona da au gerorako. Bearrezkoa da ba gizonak bere bizitzan ditun «hobby» edo jostaldiai indarra emotea. Esaterako jakintza-zaletasunari, jolasai, alkarren arteko artu emonai, sendiardurea, ibilketa edo turismoari, norberaren Erria lenengo eta gero ludia ezagutzeari...

Eta, batez be, Erriaren alde lan egiteari eta politikeari bide bat zabaldu bear jako. Gaur gizarte-arazoetarako iñork ez dauka astirik, baiña geroago asti geiago izango dan lez, gizonak orretarako zaletasun bat bear dau, zaletasun ori indartu egin bear jako.

* * *

Baserritarrak datortaz gogora. Langille oneik azkenengo mailan dagoz bide onetan. Oindiño oporrik ez atseden-aldirik ez dabe. Euren lanak orretarako ez dautse emoten.

Baiña baserriak laster aldakuntza sakonak izan bear ditu. Gaur asita dagoz. Zetan geratuko da baserria? Ezin jakin. Baiña auxe bai esan bearrekoa: beste gizonak dabezan eskubideak eta erak beaserritarrai ukatzea ez dala zuzena. Eurak be euren opor-aldiak bear dabez. Orretarako, bear ba' da, eurak auzoetan alkarreri lagundu egin bearko dautsoe eta batasun ugariago eta sakonago batera eldu.

* * *

Gure gurari zintzoa auxe da: irakurle guztiak opor-aldi zoriontsua izan dagiela ta lana izten daben ezkero, beste alde batetik onurakorrak izan daitezela, edo jakintzarako, edo osasunerako, edo sendotasunerako, edo gizarte-arazoetarako...

Eta, zergaitik edo agaitik, opor-aldi zoriontsurik ez dabenai euren alde zuzentasunari dei egin ondoren, urrengorako itxaropena ez dagiela galdu, eskubide onetan beintzat bardiñak izan gaitezan.

AGUR



MARMITAKOA ITXAS-ONTZIAN.—J. Garcia Totorika'ren margozki ederrenetarikoa. Izar barria Eusko-edertian.

ITXASOETAKO EMOITZAK

ZER JANA

Gizonak ludiko ur gazi, kresaletan daurkiz ianari on, ugari, aberats ta garrantzi aundi ta bearrezko diranak. Bestalde, ba-dira lurralde batzuk, legorrekoz baiño askotzaz geiago itxasokoz alikatu ta bizi diranak. Batez be, Iapon'go lurrak, ainbeste gizaki biztanlentzat, eskas ta urriak izanik, ezin dabe beste erri batzuen antzera, zelai ta larre oparotsuetan abere talde aundirik izan.

Dakigunez, ludiko arraintegi aberatsenak, lau toki ezberdiñetan arkitzen dira; goi iparraldeko biltokietan oiñarrituak. Bi, Itxaso-Barea'n arkitzen dira, Asia'ko ipar-sortaldeko itxas-ertzean, eta Amerika'ko ipar-sartaldean. Beste biak, Atlantiko Itxasoan, Amerika'ko ipar-sortaldeko, ta Europa'ko ipar-sartaldeko barrutietan.

Toki orreitako ur-zerrenda, biltoki bakoitzean, arraintzurik geiena itxas-ertzeko ur azaletan izan oi da, ta ondua nabarmenkeri barik, gitxitik aundira, goibera politean sakonerantzen dana. Ur zerrenda orreitako arraintzu-toki aberats auek, «banku» izenez izentatzen diran itxasoaren goi-uneak dira. Itxas-zerrenda toki orreitan, arrain pilla ugariak biltzen dira, aukeran arkitzen dabelako ianari egoki ta ona. Planktoi izenez dazagun arrain-ianari oparotsu au, izaki txiki, nimiñoz ornitzen da. Arraiñik aundienetakoak, planktoi iantzale diranen arrain kumetxoak ianez alikatzen dira.

ARRAINKETEA

Sardiñea da ur berezi auetan arrapatzen diran arrain-muetatik garrantzitsuena. Sardin arraintzaleak, beraz, itxasontzi bedegar, lan-tresna egokiak izan oi dabez ta, ortaratzen diranean, trasmaillu sare luzeak ureratzen dabez, ordu batzuk igaro ondoren sareak iaso ta ontziratzen alegintzen dira barruan dakarzan sardiña, emoi ederrakin.

Arrastakako ontziak, bai makaillutarakoak ta, bai lebatzetarakoak, beste ontziak baiño sendoagoak, andiagoak eta indartsuagoak izaten dira. Geientsuenak beren kaietatik, eundaka millatan itxas-barruratzen dira, ta itxasoan egon leitekez aste batzuetan erriratu barik. Ontzia ibilli dabillen bitartean, geldiro-geldiro, itxaskatuz arraintzu «banku» gaiñetatik, onil antzeko sarea arrastaka daroa ta, orrela arrapatzen dira arraiñak.

Munduko arraintzu guztietatik buru, eredu diranak, ta batez be, beste edozein laterrikoak baiño askotaz gaiago diranak, iapoitar arraintzale trebeak, Itxas-Barea'ko ipar-aldean, itxasgaiñeko kontserba lantegiak daukez, ta arrapatu ala, landu ta gertuz, poto edo latontzietan sartzen dabez, denbora irabazi ta dirua aurreratuz.

BALEAK

Laterri-Alkartuak, Txina, Urrss ta abar, garrantzi aundiko arrain-eragille purrukatuak dira. Europa alderdiko kresal-uretan, arraintzurik aundienak Noruega'k ta Inglaterra'k egiten dabez. Laterri auek, Iapoi'az batera, bale industiraren iabeak dira. Gaur-eguneko bale-eiza, arraintzuak, geien bat beintzat, Antartida alderdiko itxas-barrutietan egiten dira. «Balekari» izenaz ezagutzen diran ontzi eizekari txikiakaz arrapatzen dabez itxas-abere aundi auek. Lerkai kargaz ornidutako arpoi, kaiñoi bereziakaz baleak il ondoren, aldameneko Faktori itxasontziak erosi, ta bere bidean ara ta ona dabillen artean aragia ta saiña atotzen dabe.

BIZI-BIDEA

Ludiko lau arraindegi aundienetan, milloika gizasemek arkitzen dau bere lan bizibidea, batzuk arrapatuz, besteak gertatu ta landuz, ta gaiñontzekoak banatu ta salduz.

Ba-liteke bai, beste ainbestek bere irabazpidea izatea munduko beste itxas-ertz txiroago batzuetan, beste aintzira ta ibaietan. Auen lan-tresnak txiroagoak izan oi dira, arraun edo oialezko ontzietan ta iakiña, arpoi txikiago ta sare apalakaz.

Ozeaniar arraindegi aundietan gizonak, geroago ta arraintegi geiago kentzen dautso itxasoari, ta, beraz, len ain ugariak ziran arrain-mueta batzuk asko gitxitu dira, esate baterako lebatza geroago ta urriago arkitzen da itxas bazterretan.

NEURRIAK

Gaur eguneko arraintzu ontzidiak urrunetara ioan bearra dauke. Adibidez, europar arraintzaleak ta, beraz, euskaldunak be, ala bearrez, ta ain azkarrak izanik, ondo aztertu ta arakatzen dabez Groenlandia'ko itxas alderdiak. Orregaitik arrain-mueta berezi batzuk, betiko galduko ete diran bildurrez, arraintzu-laterri aurreratuenetako iakintsuak, arraiñen bizibide, ioan-etorriak, goraberak ta abar, ikasten aspaldi asi ziran. Baiña bitartean erri-agintariak eztabaidatan dabiltz, zer bide, zer erabaki artu ez dakitelarik. Tamala da, baiña neurri ongarri ta egokiak garaiz artzen ez ba'dabez, itxasoak ain aberats, amaitu eziñak diruditen itxasoak, laster batean agortu, ondatuko dira!

MUNIATEGI'TAR SABIN

AMES ALA LAUSO?

BIOTZ-LEIOAK ZABALIK

Giltzapeko ezkutuan egondu natzaitzute arestian. Iñork ezin dezake uka on ez danik iñoiziñoizko atseden alditxo bat, batikpat ostatu merkea dalako ta oporraldi auetan gizaki-mota oargarriaz arkitzen zeralako. Eta ezkutuan zabalbideak aixago artzen dituztelako biotzeko ezkutapenak.

Onelaxe, bada, iraultza edo errebolu zioaren bideak eta jomugak bestelakoxe otsa ta zabala dute. Lagunarteko txolartean, batez ere guztion naigabean oiñarritzen diranean, edonor dago ernaritua lagun-urkoari bere sentipenak diran bezela azaltzeko.

Zer da iraultza? Bai ote dakigu nora dijoan? Orri osoak, izparringi osoak ere betetzen dira onetzaz. Baiñan zeiñen gutxi agertzen diguten beren pentsa-mamia.

IRAULTZAK, BAT, BI TA...

Iraultza beetik gora edo goitik beera egin diteke. Bai eta poliki-poliki jiratuaz aldakuntzaren kurpilla, gaur eta biar, etzi ta etzi-damu. Edo-ta gizakiak millaka ta millaka urteetan barna ipiñi dituan oiñarriak zuzterretik ebakiaz, ondamenetik eta ezerezetik jaioko dalakoan guztiz obekiagoa izango dugun zerbait. Oro ito, oro ken, oro txautu. Zanpatu orain arte maitea izan dugun guztia. Erakarri gurera ezezagun ditugun arrotz giroak.

Guk euskaldunok, ikusten dutanez, naaspil eta katramil bat ba-dabilkigu iraultzari buruz, ura alakoa! Gure oraingo jakintsuek, bestaldetik «laboratorioetan» goxo-goxo babestutakoak, beren buruak asmatzaille gorengoak bezela azaldu nairik, aalegintzen zaizkigute zein baiño zein asmo eta jokabide nabarmenagoak etxeratzen. Eta onelaxe ere, iturri garden oietatik ur berria edan ezkeroz, aitatutako ezkutuan iraultza orreri buruz, arrigarriaren arrigarriz siñiskaitzak iduritu lezaizkiguken gauzak entzungo dituzu —guretzat ez ain arrigarri, noski, aspaldi nabaitu genualako azpijokoa.

UTZI... GERO UTSA

Iraultza zer dan argitzeko txolarte oietan, aski ez iduriturik m-leninista zala akuillularia aitortzea, politikaz gaizki osatutako gazte batzuen on-iritziz, eta gutxienen aurkaz, onelako gauzak esan eta «proposatzen» dira (h ta guzi):

Guk, Euskalerri berri ta zoriontsua egingo dugu. Orain arte ontzat eman diguten guztia ken. Ken euskal-moralaren oiñarriak, berriak ipiñi. Komunidade batean bizitzera iritxi bear dugu. Dan guztia, guztiona. Baita emakume guztiak gizon guztientzat. Aragikeri azke oso batera iritxi bear gera. Baiñan kapitalismoak eta burgesiak esi gogorrak ipiñi ditu iraulıza orretara ez irixteko. Bat (barria ote?), eta aundienetakoa, sendia edo familia da. Sendia da kapitalismoaren asmakizun gaiztoenetako bat. Beraz...

Eta sendia txautzeko bideak argitzeko batedonbatek eskatu zuanez, izlarietako batek onela jarraitu zuan:

Asieran, erria oitu arte, zortzi edo amar neska-mutil bikoteak alkartu gindezke. Mai batean jan, ta oe batean (argiak piztuta ala itzalita ez zuan argitu) lo egin. Eta datozen semeak estaduarentzat. (Zer «erremedio» arraioa!).

Ori bai, argitu zan, gauz auek aukeratuentzat —elitearentzat— zirala, erriari gogorra egingo zaiolako iraultza ezezik izketa au ere, asieran. Eta au guztiz ongi idurutzen zitzaion, andregai jator bat zualakotz, batek berarentzat eskatu ziolarik, arrazoi bera izan zuan: «Ez, ori ez, erria ez zegok oraindik «preparatua»...

IRAULTZA ALA IRAULTZAKERIA?

Jolas itza dirudin au, egi garratz bat da. Gure gazte zenbaitzuen adimenak naas-naas daude. Ori zionak Ama Birjiñaren katea lepotik zintzilik zeramala esanik, pentza zer naaspilla!

Gauz arrigarriagoak oraindik ere azalduko nituzke. Ez natorkizue baiñan gizakirik zalatzera, gaitza zalatzera baizik. Entzun bezate aditu bear dutenak, eta mugitu bitez mugi bearrekoak, berandueg gerta dedin baiño lenago. Nik oiñazezko oiu bat dagiet gure euskaldun erriaren zuzendari izan ditezkenei! Lo egiteko egunak joan ziran! Begiak zabaltzekoak datoz!

Maiz lagatzen ditugu gauz zenbait, txikikeriak diralakotz. Baiñan utsetik aasten da. Mugi gaitezen bada eta alkartu asmo txastar auei esi bat ipintzeko. Guztiok nai dugu erriaren egoera aldatu, baiñan bere jatorrizko izakerarik galdu gabe. Guztion onerako bai-da erriaren aldakuntza edo iraultza. Ez baiñan iraultzakeria. Iraultzakeriz jazten da erriaren etsaia, otsoa ardi larruz estaltzen dan eraberean.

Eta gaur idatzi dizuetenez, zer derizkiotzue: Iraultza ala iraultzakeria al dabil gure artean?

UXOLA

EUSKERA

EZ DUGU ONGI ULERTZEN

Arestian irakurri al-izan dugu igaz Arantzazu'ko Villasante aitak idatzi zuan liburu au: «Hacia la lengua literaria común», «Ororentzako izkuntza idatzitaruntz». Erderaz dago liburu au idatzita. Idazleak, itzaurrean (5'kn or.), orrela idatzi baiño lenago zalantzan egon dala diño; baiña, azkenez, gaiari buruz oartu duen egarriagatik erderaz idazteko arabakia artu zuen.

Orra or ulertzen ez dugun lenengo egipena. Gaia euskera ta euskeraz idazteko jokera izanik, orri buruz kexu dagozen guziak edo geyen-geyenak euskaldunak dira enurarik gabe ta batez ere euskera guzitara erabilli nai dutenak. Orrengatik liburua oientzat egiña bide dago bereziki, ta ba-dirudi oientzat ere gai ori euskeraz aurkeztea egokiena izango zitzakeala. Ulergaitza, benetan, orrela egin ordez, erderaz yardutea.

Urrengo orrialdeetan (6, 7, 8, 9) erderazko «lengua literaria» zeri deitzen dion azaltzen digu egilleak. Ori, berarentzat, idazteko erabiltzen dan izkuntza da, ta ori ere ez da argi ulertzeko; jakiña bere aukerakoa da idazten dan izkuntzari izen ori ematea, baiña argigao izango zitzakean orri izkuntza idatzita deitzea, ta beste izena elertirako erabiltzen danarentzat bakarrik uztea. Liburuaren 8'gn orrialdean, izkuntza idatzita (bere «lengua literaria» ori) errialde bateko ikastola guzietan berdin irakasten dala diño. Baiña gurean ez, iñun ez, gaiñeratu bear dugu gure aldetik; ta ori beti esan bear da.

12 ta 13'gn orrialdeetan auxe galdetzen du: ea zergaitik ez dan eldu euskalduna bere izkuntza, idatzita («literaria») izateko eraz atontzera; ta zio batzuk ematen ditu. Geron ustez indar gutxikoak dira zio guzi oiek, eta garrantzi aundiena duten bi auek ez dira or aipatzen: 1) Euskalerri'ko gogoetalari ta agintariak beren Erri'aren izkuntza zearo urruiñatzea; 2) Gurean jarri dizkiguten eskola ta erakunde guzietatik at, bera suntzitzeko xedeaz gaiñera, botatzea. Ezin aipatzeke utzi bi zio aundi oiek, gai oni buruz ari-izan ezkero.

17'gn orrialdean «Ile-de-France'ko parantzera, ororentzako izkuntza bezela... euskallurrean ere sartu da» la diño idazleak. Baiña ori ez da orrela gertatu, gure iparraldeko Euskalerri'en parantzera indarrez jarri-erazi dutelako; ta ori ere ez da ixiltzeko.

23'gn orrialdean «Zaloña jaunak eskolan amaren izkuntza irakasi bear dala idatzi zuela» jakin-erazten zaigu. Baiña esakun ori ez da guziz argi lekaidearentzat eta bear dan bezela ulertzeko edo, «Ludi'ko eskola guzietan izkuntza idatzita «(literaria)» irakasten dalarik, izkuntza ori ta amak irakasten duena berdin ez dira'la diño. Ez dakigu ertsiki, Zaloña jaunaren asmoa zein izan zan. Baiña, geron iritziz, beste argitasun bat ematea bearra da oso. Ludi guziko eskoletan amak eta eskolak irakasten duten izkuntza berbera da, e. b., Inglaterra'n engalandera; eskolan beste eraz, eliztiaren arauen bidez noski, baiña Inglaterra'ko amak beren aurrai irakasi dieten berbera. Ta gurean ez da orrelakorik gertatzen; gurean amak euskeraz irakasten du ta eskolak erderaz; Inglaterra'ko eskoletan txinoeraz bakarrik irakasiko bailuten. Gauzak argi esan bear ba'dira, orra ixiltzeko ez dan beste bat.

30 ta 31'gn orrialdeetan onela ari da idazlea: «Oso landuta dagozen izkuntzetan, itzak gero ta geyago asmo-ikurrak biurtzen ari dira, len otsak adierazteko izaeratik aldentzean»; eta Elizalde'ren lan bat aipatzen du orri buruz. Ez dugu ukatuko ori batzuetan gertatzen dala, baiña izkuntzalari aunitzen ustez izki bakoitzak soiñu bat bakarrik adierazi bear du, ta ontzat artu dan asmo ori ez da aiztutzekoa ere. Ori dala-ta, zergatik idazten da gaur gurean, e. b., **biologia** «g» orren soiñu gogorraz, eta bide batez **ogia** «g» orren soiñu leunaz?; uste ezpaitugu «biologia» idazten dutenek «g» ori bere soiñu leunaz oguzten dutenik. Gai orri buruz, gero, 81-82'gn orrialdeetan Michelena'ren iritzia ematen digu, onela: «-logia'z amaitzen diran itzak eta beste antzekoak dirala-ta, «g» ori gorde dezatela, ta gero bakoitzak bere gogaraz oguzi ditzala. «Jeolojia» idaztea entzumenari egokiagoa izango litzake, baiña ez ikusmenari, ta idatzitako izkuntza ikusmenaren zear sartzen da geyago entzumenetik baiño». Baiña orrela jokatu ezkero «g» izkiak, euskeraz ere, bi soiñuetarako erabilli ditekela esan bear dalakoan gagoz, eta ez dugu argi ikusten orrekiko arau garbirik eman ditekenik, batez ere oguzkera bakoitzaren gogaraz egiteko uzten ba'da. Guretzat egokiagoa da, euskeraz, «G» izki orren soiñu gogorra, beti, «j»z idaztea.

43'gn orrialdean onela ari da idazlea: «Bizkaera ere gure egunetako neurri-gabeko garbizaletasunak ikutua izan da, erritarren izkuntza ta idatzitakoaren artean bete ezin diteken leize-zuloa jartzean eta izkuntza apurtzeko ari diran zio askori, orrela, beste bat gaiñeratzen dalarik». Emen agertzen da idazlearen aurre-iritzia, ezurretaraiño sartuta daramana: garbizaletasunaren aurkako aurre-iritzia; 72'gn orrialdean agerrerazten du berriro bere iritzi ori, ta len ere bere lanetan orrenbestez ari-izan zaigu isituki.

Baiña, len esan dugunez, bere liburuaren 23'gn orrialdean: «...izkuntza idatzita «(literarioa)»... amak irakasten duena bezelakoa ez dala...» diño. Ta amaren izkuntza erritarrena dalarik, **ez ote da beste leize-zulo bat sortzen izkuntza ori ta eskolan irakasten danaren artean?** Orrela dirudi ta, azkenez, naiz garbizaleak naiz «euskera batu» koek gauza bera dagite; ta esandakoagatik lenengoek dagitena gaizki baldin ba'dago, orobat ikusi bear bigarrenen egipenean.

Eta zeintzuk dira euskera birrintzeko guda dagiten zioak? Asko dirala diño idazleak, baiña ona izango litzake guziak zeintzuk diran esatea, baita bakoitzaren zeatzak ematea ere. Itz berrien kexutasuna ere ikus dezakegu emen; itz berriak eratzea ezinbestekoa dala uste dugu guziok, eta itz oietarako bi oiñarri ar ditezke: euskal-oiñarriak ala erdal-oiñarriak; eta oien artean aukeratzeko ez gatoz guziok batera; Villasante aitak ete bere lagunek erderazkoak naiago bide dituzte, geuk ordea euskerazkoak, al diteken neurri aundienean bederen. Bietariko itz oiei auxe eskatu bear zaie: ongi eratuak izatea, ta ongi eraturik izan ezkero, ez dugu ulertzen zergaitik naiago bear diran erderazkoak.

45'gn orrialdean 1968'gnean «Euskaltzaindi'k ontzat artutako batasunerako araua ulertzeko, ta egokiak bezela, itz auek jartzen ditu: «Ororen mamia» («Fondo comun»). Mami ori nabaritu ta bertan sendoturik aurrera jotzea; «orixe egitamuaren berezitasuna». Ez dugu orren aurka esateko ezer, eta onartzekoa dala uste dugu. Egitamu orren egillea Michelena dala adierazten da 51'gn orrialdean, eta bere bi elburu auek aipatzen dira: 1) «Euskalkiak alkarrengandik gero ta geyago aldendu ta urrundu ez ditezen arretaz ari-izatea; 2) Al diteken neurrian alkarrenganatu-eraztea. Oso ongi dagoz bi elburu oiek eta euskaltzaleek beti ontzat artu dituzte, Ari-izateko, errazenaz asi ta zailleneruntz, auetxek dira aipatzen dituen gaiak: «Idazteko era. Itz zarren era, Itz berriak eraztea ta artzekoan era, Itzen eite (morfolojia), Joskera». Baiña ez al zegon egiña «Idazteko era'ren batasuna?; guk baietz uste dugu ta aspaldidanik gaiñera. Idzleak berak ere, gero, urrengo orrialdean, auxe idazten du: «Bestetik, idazteko eraren batasun ba-da, geyenean, egipen bat».

59, 61 ta 65'kn orrialdeetan H'ri buruz ari da. Lenengoan, gai ori ezgutzen dutenen artean, arnas-artzekodun H, aspaldin, euskeraren zabalera guzian erabillia izan zala enurarik ez dagoela diño. Ta egiztabidez Michelena'ren «Fonética Histórica Vasca» liburuaren 203'gn orrialdea aipatzen du. Michelena'k San Millan'eko idazki zarrean Araba'ko errien izenak aipatzen dirala ta oietatik asko H'az idatzita agertzen dirala diño. Ezin uka diteke, ortik, H ori oguzita ere erabilli zala usteko susmoa sortzen dala, baiña geron ustez egiztabide bezela eziña dala artzea. Nork esan izen oiek idatzi zituenak zergaitik egin zuen orrela? 61'gn orrialdean H onartzea zailtasun berria dala aitortzen du idazleak, «eta ez txikia (oraingoz bederen)» gaiñeratzen du. Geron gardiz naikoa da ori ta geyegi ere, iñundik bearra ez dan izki ori ez erabiltzeko; ta orixe esondatu zuen Lafitte kalonje jaunak Arantzazu'n bertan 1968'gnko billeran; etzuen arek ontzat artzen H'a egoaldean sartzea.

65'gn orrialdean zailtasun ori berriz nabari-erazten du idazleak, ta auxe diño gero: «gaiñera iparraldeko euskaldunek ez dute guziak berdin erabiltzen (H ori); Benaparro'an eta batez ere Zubero'an arnas-artzea sarriago egiten da Laburdi'n baiño». Orduan, mail ortan, nola egingo da batasuna? Ortarako askoz errazagoa izango litzake, geron ustez, iparraldekoek pizkanaka-pizkanaka H ori uztea; gaur ere ori egiten baitute sarri, batez ere absten dutenean. Michelena jaunak bere «F. H. V.» liburu orretan, 204'gn orrialdean auxe diño: «Laburdi'ko itxasertzean H'ren galtzea arestian gertatu bide da». Ortik, euskaldunak ez diran beste toki askotan bezela, H ori uzteko jokera dala ateratzen da; ez al litzake milla bider errazago bide ortan barna jarraitu ta aurreratzea?; ta orrela euskera guziontzat errazagoa izango litzake, euskeraren eta ororen onurako.

80'gn orrialdean gogo berezi bat ezagu-erazten du Villasante aitak: Sartaldeko izkuntzetan kulturarekiko erabiltzen diran gerkeraz eta laterazko itzak («terminología cultural grecolatina») euskerak artu bear dituela, ortarako dagozen aurre-iritzi zarrak uztean. Zeintzuk izan bear dira, baiña, kulturazko itz oiek?, itz oietako batzuk, asko, ertsiki kulturazko ez diran gaietan ere erabiltzen baitira? E. b, erderazko «adjectif» itza, nola izango da egokiago esatea, Villasante aitak berak, bere eliztian esondatzen duenez «adjetivu» («v» az gaiñera) ala «izenondo»? Zalantzik ez guretzat bigarrena autatzeko. Eskolara doan ume euskaldunak erraz eta bereala ulertuko du «izenondo»'ren zentzuna, ez ordea beste itzarena. Orrengaitik oso bearra izango litzaiguke itzez-itz eta gaiez-gai, itz guziak aztertzea ta bearrak ditugun itz-bildumak bururatu kulturazko gai errezenetan asi-ta. Orrela, gure euskal-iztegia ere egin al-izango litzake, orra ezinbestekoa zaigun iztegia. Beste aldetik, kulturazko gaietara eldu baiño lenago, ba-dagoz beste mail arruntagoak, batasunaren billa ari-izateko erabilli bear-izango ilrakenak.

Luzeegia da onezkero gure iruzkin au, baiña Villasante aitak eta beste batzuek daramaten norabidea ain oker eta kaltegarria dala uste dugularik, bearrezkoa zaigu gauzak alik eta zeatzenik begiratzea. Ez, ez dugu ulertzen norabide ta jokera oiek erabiltzea. Villasante aitak oso ondaki euskera, baita ederki idatzi ere; zergaitik idazten du ain sarri mordoilloz? Ortxe dugu orain bi urte argitaratu zuen «Jesukristo» bere liburua; bertan beitara idazten du, garbi mordoilloz; zergaitik orrela?, ezin geron aldetik ulertu. Geron ustez, gure izkuntzaren beste kundeari indarra eman zioten Orixe, Lizardi ta oien aldiko beste idazle onen jarraitzaillea izan zitekean. Aitzitik oien norabidean egiña zan batasuna apurtu egin digute ta euskaltzaleak gaur erdibiturik gagoz. Ez dugu, ez, ulertzen, ezin gertatutakoa, ta gure atsekabea ez da txiki.

UTARRA

GAITZA TRINKATU

HERNANDORENA JAUNARI

Adiskide on ori, agur:

Zure euskal-idazlanak neretzat beti duten begirapen arduratsuaz irakurri di Euskeran «Gaitzari» Buruz AGUR onen 13'garren zenbakian zuzentzen diazun «E kutitz Iriki» oargarria. Gogoan det, baitare, arazo beronetzaz Lasarte bertsolarian «Omenaldi Egunean» Astoria Antzokia'ren ate-aurrean esan zenidan ura:

—Ikaragarria da, Zeleta, oso ikaragarria, «Sinist Aal-Diteke» idazburuaz zuk Z. A Aramaio'ko euskera galtzeatzaz idatzi dezuna!

Bai, noski; ikaragarria! Baiña... zoritxarrez... egia! Egi negargarria, benetan bertako «Oxirol» idazleak eta Olaeta auzoko Pujana apaiz jaunak idatziz egiztatu dutenez, nere oiartzuna.

Euskera, «gaitzak» artuta daukagula diozu, Hernandorena jauna, neri zuzendiazun eskutitz-iriki orretan, eta «gaitz» ori nola sortu zaigun eta nola trinkatu **ed zapaldu, edo nola sendatu jakin naiaz, neri bi galdera egiten dizkiatzu.**

Bata.—Zergatik galdu da Aramaio'n eta Euskalerriko beste erri askotan, euskera?

Nere erantzuna: Lenbizi, **euskaldunok geure izkuntzaganako ajolarik eza'gaitik.** Bigarren, **gure erririk geienak, landola-berri-aundiak aitzaki, erdaldunez gainditu aurkitu diralako, ta auen bitartekotasun edo influentzia'gaitik.** Irugarren, **bitartekotasun ori izan ez duten eta oraindik ere ez duten erri askotako** apaizak, **euskaltzaleak ez diralako.**

Zure bigarren galdera: Zer egiñ aurrerantz, ori gerta ez dedin?

Nere erantzuna: Euskal-Ikastolak ugaritu, euskotarra euskal kontzientzia jantzi dedin.—«Euskal-Egunak» sarri-sarri ospatu, gure errietan.—Euskerazko ikurketak eta idazte-sariketak, ugaritu.—Euskal-Abeslari-Taldeak, ugaldu.—Euskal Antzerkiak, maizago antzestu.—Bertsolari saioak, geitu.—Egintza onen bidez euskaldun-artean, euskaltzaletasuna ta euskeraz irakurtzeko zaletasuna sortzen, gogor eta gogoz saiatu, euskal-irakurgaiak utsean edo ordaiñez ugari zabalduz, euskal-sailak izparringi ta aldizkari daneri ta idazti egillieri diruz beren egiña ordainduz.

Ortarako, jakiña, Euskal-Diru-Kutxa **aundi baten bearra degu, katalandarrek beren izkuntzari esteko duten antzekoa. Euskaldunok, edo euskaltzale geranok gai-algera, prest algera, bearrezko zaigun ekintza au aurrera eramateko? Ortan dago nere ustez,** Euskera'ren Osakuntza **eta bere iraupena. Eta Euskaltzaindikoa naiz aldetik, auxe baizik, Hernandorena adiskidea, ez dizut esango: Euskaltzaindia besterik gabe, naiko lan ba-duala berekin,** Arantzazu'ko batzarrean **sortu zitzan «erlakeztena»'k ematen dizkion «buruko miñekin».**

Agur, ba, adiskide maite; eta agindu.

ZELETA

POZAK ETA KEZKAK

&

EUSKERANTA BATUALAI ATZEKOZAURRE

(B. G.)

Arantzatzu-n hil zan atzo Abustuak 14, zarkamentuak hartu ondoren

Bere direktore espiritualak, Aita Ludi-biko; anaiak, Lataina; koinatak, Erdera Mugaldebiko; ilobek, Atxe, Efe, Bullejo, Johan, Johanes eta Juhanito; iloba politikoek, Olerki Nehurribako, Josepe Joskeratxar, Liberata Edozeindako, Manex Mordoilo ta Urunueta-ko Mentxu. Lengusuek ta gainerako familianoek.

Dehi dagizue Bilbo-ko Errekontra Krematorio laikoan izango diran llantoixurietara, gahur eguerdiko ordu batetetan, ehuskeraz.

Domizilioa: Ibarra 6.

Familiak danetarikoak artuko ditu; emon ba.

Sarri galdetu dauskue nola egiten dan il-deia, ara nola ez dan egin bear.

* * *

Bilbo'ko ikastola bateko 8 urteko aur bik: «Ez dago Jaungoikorik; ori ipuin bat da», ta jaunartze aurreko azterketea egiten iñarduan monjatxoa arrituta... ta gurasoak lo ta lo, ta dirua emoten.

* * *

Andereiño batzuk «kutsututa» ei-dagoz, ta «naikorik ez dagonetik eurekin jarraitu bear»... Zeuk baiña, kanzer antzeko enorrik izan ezkero, eta zororik etxean ba'litz, Bermeo'ra, ta bularretiko ba'lego, Santamarina'ra. Besteen aurrentzat beti edozer... «ez daukagu besterik-eta». Ea bein, eu zeatz!

* * *

Ez ei-jakoe Jaungoikotasunik erakutsi eu aurrak, eurak aukeratuko ei-dabe. Erakutsi bai bai «ez dagola»ko ori. Eibar'ko gazte (?) batz «progresismoaren» izeneau-edo, umeen jairako bideetan, ez dabe esan nai izan amarretan Ma ebenik Karmel'go Amaren eleizan, ta bederatzire amaikak arte zer egin bear eben, ixildu egin da Txixa egitera-edo Urkuzu'ko itxurrira, ez da?

* * *

«Konfesionalak» ei-gara; ez gara izango l Ziñesten doguna aurrean daroagu ta ez dogu ixil «lotsa»'rik ez dogulako, ezta guzurrez iñor ab petzerik nai be. Besteok, «buru-argiok» ez dau esango zer diran, «taktikea» ei-dabe, bestela em bildurtu egingo litzake-ta. «Taktikea» ala bildu ta zikiñaren lotsa?

* * *

Eibar'en au be. Jaungoikorik bai ikastol Gurasoei «inkesta»; 144'tik 142'k baietz. Bigarr galdera, por-si-acaso-koan, Noiztik? 77'k jaiotzai 55'tek 5, 6, 7 edo zortzi urtetik. Batek, bere kontu dei egin, ta batu ditu, batzuk, —foballa telebisiñoan-ta—, ta or diñoguna irakurri ondoren, au eskatu eban, 55'ok bat ez etozanez, eureri galdu bakarrik noiz asi irakasketa ori, (itxuria, al-dun beranduen edo bapez). Eskerrak guraso danak zirala tele orri ao-zabalik begira, ta an egozan gauzak bere bidera ekarri.

PIPER-ZIRI

GAZTE

ERRI BAT IZKUNTZA BAT...

BAIÑA EZ ERDERARIK

Ez dogu gaur lenengoz esango ta ez da azkenez izango: gure izkuntzagaz jazoten dana, ez dot uste bate izkuntzekin jazoten danik. Inglanderaz edo prantzeraz ikasi nai ba'dozu, ondo ikasi jakiña, emengo iztarroak egin ondoren, bertara, Inglaterra'ra edo Prantzi'ra joan bearko dozu; aberatsa ba'zara zeure aldetik ordainduta, bestela, geienak lez, lanaren truke ostatua irabazten. Zer dala-ta? Izkuntzan sakondu nai ba'dozu, ogutzen ikasteko ta itz-jokoaren soiñu berezia zeuganatzeko; orrela, emen ikasitakoa erabilliaz, an jatorrituko dozu, esakerean bertakotuko zara.

Euskera-ikasleak ori egiten ete-dabe? Inglaterra'ra ta Prantzi'ra joatea baiño askoz errezagoa dozu ber aldietan edo aste-amaieretan baserriren batera edo gitxienez, euskal-auzoren batera joatea; an euskera ulorra ikasiaz, «soiñu» berezia ta erriaren joskeragaz jabetuko ziñake... bene-benetako euskerea. Baiña en irakurle, gitxik egiten dabe, ez erreztasunik beti aurkitzen ez dalako, alperkeriaren erruz baiño. Ta on-tarena... zer? Belarrietan min egiten daben euskera larregi entzuten dala. Gure Garitaonaindia'tar Gotzon ganak sarri esaten eban, Bilbo inguruan askok egiten daben euskerea lotsagarria dala ta euskaldun barri ntzat zar orreitariko asko, prantzez edo inglesez ondo egiten alegintzen dirala, baiña ez euskeraz.

Orain, orrez gaiñera, «euskera batu» aren mitoa sortu da ta oraingoz beintzat ondo ikasi ez daben «ira-kasle» batzuk jo-ta-ke diardue euskeranto orren alde, ikasleeri mito orren bear-izana sartu nairik. Ori baiño enago, euren «euskera batu particular» ori onartzen ez dogunok, Euskera'ren etsai bezela salatuak gara edo gitxienez, euskeraren batasunaren etsai bezela... ta ori GUZURRA da!

Eta guzur orren zabaltzailleak Euskaltzaindi'aren babesean egiten diran alfabetatze kanpainak *nkeratzen ditue orretarako. Ori jazo da Mungi'an eta ori berori Motriku'n «euskaltzain» batek izan daben izaldian; orrek esan ebanez, AGUR gure aldizkari au «euskera batua puzkatzeko sortua da». Baiña zer do zein da «euskera batua»? Ori darabillela esaten dabenak, batzuk bizkaiera, beste batzuk gipuzkera ta gienak euskerantoa darabille; aldizkari baten iru edo lau idazkera agertzen dira, ori bai, danak h'z josita... r dago batasun guztia? Ori bakarrik ba'litz ez giñake minduko, txarrena «erderan» batu dabez euskalkiak, ta ori ez dogu guk,* burgesok, *bakarrik esaten, irakurri ta aztertu aldizkari batzuk eta... kitto! Zer ete-ta euskerarentzat kaltegarriagoa, «dogu, degu, ta dugu'ren arteko ezbardintasuna ala «kaballu, bentana, tomata ta abustua»'k esatea?*

Barriro ta betiko diñogu: Lengoak eta gu be bai, literatura maillako batasuneruntz diardugu, baiña ez dogu oraingoz lortu —ain arin ezin lieteke-ta—. Nere ustez gaiñera «il edo biziko arazoa» ori danik ez dot siñesten; nere ustez, ori baiño garrantzi aundiagokoak oneik dira:

1.—*Eguneroko lanean, etxean, kalean, umeeri, emazteari edo andregai ta laguneri euskeraz egitea.*
2. *Euskaldun guztieri ta batez be baserriko seme-alaberi gure izkuntzaren edertasuna ta zor dautsagun lotsea adierazotea.*
3.—*Ikastola ta ikasketa mailla guztietan sartzeko alegiñak, bideak urratuz, egitea.*
4.—*Politika usaindun korapilloetan ez lotzea.*
5.—*Konpleju guztiak gaiñezkatzen euskaldun guztieri laguntzea.*
6.—*Euskaldun auzoak, izkuntza iturri bezela agortu ez daitezan, gordetzea.*
7.—*Erri'an bizi dan euskereak atzerako pausorik emon ez dagian, zutik jarraitzea. eta abar, eta abar...*

Baiña irakurle ta adizkide gazteok, oneik, gure uste ta naiak dira, gureak ta «batu» orretako borondate onako askoren naiak eta asmoak, baiña ez guztienak. Gaur bertan jakin dot, talde orrein buru agertzen dan batek esan dauan azken «intelektualkeria»: «Euskerea izkuntza burgesa da». Siñesten dozue? Ez? Ba, ega da, ta gutzat oiñazegarriena euskal-errizale gazte askok olako kirtenak maixutzat artzen dituztela ikustea...

Bai, mutillak, erri bat izkuntza bat, baiña ez «bulego» batzuetan «intelektual» batzuk darabillen omeletaz. Batu bear ba'dogu... batu daigun, baiña ez erderea... ta euskeraz ez dakitenak ikasi dagiela maixukerietan» asi baiño len, Axular irakurrita ba'dagoz be. Ala txinoa ikasi bearko ete-dogu «progresista» izateko?

ARENAZA'TAR JOSU

ALDAKETAK?... BAI, BAIÑA KONTUZ!

Gaurko mundu ontan, aldakuntzak ugari dabiltza erri askoen artean eta gazteen artean batez ere. Bai, batzuk —gitxienak— aldaketa oiek ikustean, bildurrez beterik egoten dira. Eta, egia da, mundu oba bat egiteko; gauza asko barritu bear doguz. Eta atarako ezer ez ba'dogu egiten, egizko gizonak ez gara iñoiz izango.

Gauzak txarto ba'dagoz, onena izango dogu, danon alkartasunaren indarragaz, gauz oiek ausnartzea eta bizi zoriontsuagoa guztiontzat egitea. Baiña aldaketak be, arrisko aundiak ditu. Eta arrisko oiek garaitzea, ez da izango erreza gazteentzat.

Askok esaten dabe: «Zarra ba'da, bota dezagun lenbailen!», baiña galdetu nai nuke: eta zer goratu etxe zar orrek utzi dauan lekuan?... Bai, askotan, itaunketa gogor au beteteko, gaurko gazteak ez dogu erantzunik. Eta trixtea da benetan. Tamalgarria, ainbeste gazteen pauso galduak..., ainbeste bizitz zaurituak..., ainbeste itxaropen itoak..., ainbeste asmo zapuztuak.

Aldaketak?..., bai, baiña egizkoak! Ez dogu bear erri ustel bat gura daben igarle barririk. Gure oitura onak ez doguz galdu gura. Olakoak izaten ba'dira aldaketak... zertarako? Bai gazteak; gure eskuetan doguz jente askoren itxaropenak, mundu ontako etorkizuna... Eta gure indarrak on aundia egin leike, baiña —eta kontuz onegaz!— txar aundia be bai.

Usoak lez, zurrak izan bear gara; eta gure asmo guztiak ondo zaindu bear doguz. Eta olakoa izatea, ez da koldarra izatea, sentzunduna baiño. Nik be, gauza txar asko iksuten dodaz... Askoren samiña ta negarra aditu dot; dana ez dogu zuzenbidea geure uri eta errietan. Baiña gauza guztiak ezin doguz konpondu bat-batera.

Gaztetasunaren indar bakarrak ez dau ezer balio! Kristo'ren laguntza euki bear dogu beti. Bere eredu zintzo eta bulartsua galtzen ba'dogu... ez gara ezer izango! Eta Euskal Erri'an be, gazte asko dagoz asmoz ta fedez beterik. Gure erriko ezne barria gara, ta orregaitik, aldaketak gura doguz. Baiña aldaketak eta giro barriak, ez daitezela izan geure Euskal nortasunaren ondamenerako!

Bizi barri bat gura dogu, gure erri zar maitea barritu. Maitasunaren billa goaz, biotza lurrean eta itxaropena goian ipiñirik. Ez!, bildurra ez dogu ezagutu bear. Kristo dogu zaindaririk onena, eta Berak gura ebezan aldaketen billa ba'goaz... ongi-etorriak!

Gure izerdi guztiak, laister izago dute saria: mundu guztiaren alkartasuna ta Jainkoa'ren egizko pakea. Eta bitartean, Euskal Erria'ren aunditasuna dogu lenengo zeregiña.

Aurrera ba, euskal gaztedia. Jarrai billaketea!!

EZKAURIATZA'TAR XABIER

NUNDIK NORAKOA

V

ERBESTEA TA BESTE ERRIA

Amar urte betetzeko garaian sar-urtea egin ta batxillerreko lenengoari ekin neutson. Latin ikasten zan orduan lenengotatik. Ez dot damurik, geroago azalduko dodanez. Ta zer egiten genduan orduan? ikusi ta ikasi, betikoa. Olantxe urte bi, batxillerreko lenengo biak. Beste edonorenak lakoxeak izan ziran ta ixil dagiguzan. Ordez, beste zer edo zer, zuri ta ari yazo ez yatzuena, ager dagidan.

Gau batean, ordu biak aldean, zarataka ta deadarka iratzartu ginduezan kaletik. Etxea sutan egoan. Su andia zan urrundik ikusteko modukoa ta ingurukoak bildurtzeko aiñakoa. Kai-aldetik sardin-saltzailleak ikusi ta gaztigatu eben errian. Guztiak kalera itsumustuan, alako ordu txarrean.

Ni pijama utsez atera ninduen ondoko etxe-atariraiño, besoetan artu ninduen erritar onak ez bai ekien nor nintzan edo nora eroan nindukeen gau aretan. Andik ordu erdira su-itzaltzailleak eldu ziran Bilbo'tik. Eta urik ez errian. Ur-gizonaren billa joan ziran Puerto-Franco'raiño. Antxe egoan bera-ta, zama-ontziai ura ematen. Atan onetan goiko pixu biak erre ziran, Karmen jaietako traka baiño ariñago. Gau a izekoarenean emon neban eta etxeko beste guztiak bakoitzak al izan eban tokian. Baiña, gauzok utsak dira, ta goazen beste zertxobait ikustera, nere barruan geroko sutarako gertatzen ari nintzan su-gai edo errekiña aztertzera, alegia.

Erriko beste umeak kale gorrian olgetan, tranpak egiten eta oiko jolasetan ibilten ziran bitartean, ni neure aititaren landetxera. An bedartzan jolastu, zugatzetara igo, fruta gordiñak jan eta etxabereak urretik ikusi ta maitatzen ikasi neban, Guztitariko zugaitzak eta barazki ta ortuariak biltzen ziran an. Izadia, izadi bizi-bizia ezagutu ta maitatu neban nere umetako egun bakun kezkagabekoetan. Orregaitik, bear bada, gero inguruan egokitu yatazan piztiak ondo ezita izan ezik, ezin izan ditut jasan onean. Ortik alkar eroan eziña ta alkarri atzamarkada batzuk egitea, noski.

Ura ugari egoan, txoriak eta lorak bazter guztietan. Ni pozik eta alai. Mutiko basati ta bakarti azi nintzan, zoionez. Ixilla kanpo-alderako, barruan zer ausnartu ta oldoztu ugari neukalako, aurki. Ta tolesgabea. Goizetik gabera inguratzen ninduan izadia ta izakiak bakun-tolesgabeak ziran legez. Usoak, txitak, beiak, txakurrak, ariak, untziak-eta, erleak-eta, etxean genduzan. Jan ere zati on batean andixek egiten genduan, iñora urten barik. Ogia bertan egin, txakoliña, eztia ta igali-gozoak ere bai, aukeran.

Zurezko itsasontziak egiten ere ikasi neban ango tresna apurrekin eta gure jolasak, neure ta lagun aundi bat edo besterenak, garbiak eta beti barriak oi ziran. Egunean egunean asmakizun barriren bat izaten genduan. Olantxe mutiko musugorri, giartsu ta sendo-gogorra atera nintzan. Noizean bein mendira, landaren batera askaria jatera edo-ta aize garbia artzera, beste gabe, jaoten giñan.

Sarritan, arraunketak, erriko jaietan, pelota-partiduak eta Sanjuanetan su andien inguruan saltoka ta dantzaka. Gaur egunean ez da olakorik egiten. Oitura galdu da. Alan be, oraindik ere, edo orain batez ere apika, sapo ta mamarro txarrak ugaritu dira, ta komeni litzake sutzar aien oiturea berriztea. Ez antxiñate-kutsuz, lengoen gotumaz, baizik eta aurreratze-asmoz eta datozanen arduraz. Garai aretako Sanjuanetako suak! Zorioneko sorgiñak areik! Ez bide euskuen kalte andirik egin. Gaurkoak ostera... Caro Barojare'ren iritziz, sorgiña = sors-giña (suertea dagiana). Betoz atzera lenbaitlen joandako orreik. Gaurkoak, erratz egalaria barik, makilla jotzailleak, aiek begizkoa, gaurkoak ostikoa...

Oi Euskalerri neurea! Zer dakust inguru guztietan! Eroan nagizue sorgin maitagarriak, eroan ni, odei guztien azpitik eta sasi guztien gaiñetik, eroan nagizue arren, zuen egoitzara! Emen beko akelarre ontan, ez dakit zein oillar gaiztok jo dauan kukurruku ta izuz beterik asia nauzue. Eroan nagizue, sorgin maiteak, eroan egizue antxiñako au ezkutuzko zulo ezkutuenera. Edo ekarri egidazue okendu miragarrizkoren bat. Zauri mingarri bat dot emen biotz-biotzean asia... Sors-giñok! Egidazue suerte ona...

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

GABEKO ORDUETAN

Bakartasun apur baten billa nabillela, ona emen gabeko ordu batak nun diran eta ni, azaldu ezin dodana esan guran!

Egun osoan berba ta berba besterik ez dot egin eta guztia ezertxo be ez esateko. Alan be, goizetik asita zerbait esan guran nabil, baiña gura ta be ezin argitu egunokaz buruan darabildan ardura aztuna!

Nundik asiko ete nazan nago.

Arduratxo asko tolostuaz eta tolostuaz, eroan ezin alako lepokadea daroat. Utsitu egin bearko, orritxo baten baiño ezpada be, ito ez naiten!

Edonundik asita be leku bardiñera joten dot, eta eztakit nundik asi: eragozpenen asikeretan ala korapilloaren amaieran, baiña asikerea amaieran ikusten dot eta amaierara jo bearko dot, erabakia artzeko eta eragozpenak sustertzeko. Izan be, zoriona ez da erreza, biotza samiñez eta burua arduraz josita dagoanean!

Bizitza, barriz, maitasunean eta artuemonetan oiñarritu bear da; bestela nora noa? Ezerezera ala osotasunera? Izatearen billa ala utsaren billa? Utsa ezereza dan ezkero, izateari begira noa, neure gizon-izatearen billa, zorion bidean.

MAITASUNA benetan artzeak, siñismena dakar beragaz. Eta siñistu buruz, biotzez eta egitez egin bear da. Orduan, laguna, lagun lez, dan lez artzen dogu; bestela barriz eztogu iñorengan be siñisten! Ez lagunengan ta ez...!

Buruz bakarrik siñisten dogunagaz soratu egingo gara. Biotz utsez, maitemindu. Egite otzez, lelotu.

Bakarrean, iñoiz, zer siñisten ete dodan-da ibilten naz, eta ona emen erantzuna: Zer nazan jakitean dakit, zer siñisten dodan. Ementxe amaitu da nire iturria ta berton asten da!

EGUZKI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

KONTU KONTARI

URNIETA'KO ERRAZTUNA

Udaberrian goroldiotan
gordeta dagon zizari
begiak zabal jartzen zaizkio
orren edertasunari,
ni ere orrela begira nago
ezkutuko maiteari,
noiz azalduko lore artetik,
aibeste maite naunari.

* * *

Maitasun larriz jarri ninduzun
bidaldurik erraztuna
orregatikan bertso berritan
jarriko nere erantzuna:
sinis zaidazu izango dala
biotzaren oiartzuna
ezkutatzen dun goroldiorik
alabearrez ez duna.

* * *

Erraztuntzo bat bota zenidan
nere gelako leiotik
eta uste det izango zala
bidalia biotzetik.
Ordu ezkeroz ez du aldegin
nere esku auen artetik
eta gau dala oeratzean
nere pentsamentutatik.

* * *

Erraztun ori ai! ba'litzake
biok lotzeko egiña
atengo luke aspaldi ontan
dedan lo egin eziña.
Nere biotza lore-ontzia
ba-litz ta zu klabeliña
nere naigabek jungo lirakez
ekarriz poz ta atsegiña.

* * *

Erri koxkor bat oso polita
da beti gure Urnieta
loretoki bat pitxi ederrez
goitik beraiño beteta,
baiñan danetan ederrena zu
maite zaitudan pertxenta
erraztun batek jarriko gaitu
biok maite asperenka.

* * *

Zure izena ez dakit baiñan
ez zait ajola ezertxo
aitzpeko ura beti egon da
lokatzik gabe enetxo,
zuk maitasuna eukia dezu
oraiñartean gordetxo,
zein iturri dan esaidazu-ta
ortik edango maitetxo.

* * *

Nere oroitzez izan ziñan - ta
eskarrikasko polita
ezkongai beti bizitutzeko
orain ez nago etsita.
Gaur ongi dakit iñor ba'dala
neri begira jarrita
erraztuna nola erabilli
nago pentsatzen asita.

* * *

Milla itz eder zureganako
eten eziñik amilka
datozkit-eta uxola baten
abaillan ta piririka,
biok bakarka, zuk entzutea
obeki izango apika,
egun ortaiño agurka dezu
Urinieta'n.

KOLDOBIKA

ALKAR - IZKETAN III

BATASUNA

—Manu, gauza bat esan bear daustat. Lengoan geure barriketaldi ostean etxera bidean, auxe gogoratzen yoan nintzoan: Batzarrak onuratsu izateko ze asmogaz egin bear ete doazan.

—Or etxagok buru austerik mutil. Batzarren asmo, xede edo elburua eretxi batekoak ez diranak, zerbaitean batasunera eltzeko izan bear yok. Orretarako izan ezik, zetako batu?

—Sarritan «sakabanatu» ta bakotxa lengo lepotik buruagaz etxera biurtzeko. Ori dala-ta nik uste yoat, oin ainbeste aitatzen doan «batasuna» ta «sakabanatasuna» bikiak ezpadozak be, lengusuak beintzat izaten dozakala.

—Orrenbeste eñeukek esango baña alkarren ondoan ibilten doazala bai. Alan da be, «Batasuna» guztiok maite yoguan itz gozoa dot, «erre» ta «atxe» bakoa dok eta. Orrexegaitik edo, neugandik asita, guztiok maite yoagun itza dok «batasuna». Yakiña, oskol utsa ta maminbakoa eztanean.

—Orrexegaitik edo, mundu guztiaren **agotan** yabik itz eder ori, naiz ta biotz ta egitez gitxitan ikusi. Beste itz eder batzukaz yasoten dana: ogi, zuzentasun ta bakea, azkatasunagaz be bardin. Asko aitatzen diranean urri dabiltzalaren ezaugarri izaten dozak. Ugari diranean iñok etxozak aitatzen.

—Ori be egia dok. Baña ez daustek ukatuko batasuna bere seme indarragaz ibilten ez danik, eta onuratsua ez danik be. Esakereak diñoan lez, «batasunak indarra emoten yok».

—Ez orixe! Baña batasuna, non, noz, zelan, zetan eta zertarako dan yakin bear yoagu. Or yagok untzea! Ori nok erabagi? Gitxi batzuk artu daben asmoari beste guztiak burua makurtuta? Ez daukek ames txarra! Nik uste yoat ori «batasuna» egiteko baño «sakabanatasunerako» bide obea dala. Gaurko yentea, geyago barik be, burua makurtzen aspertuta yagok.

—Izan be alan dok! Batasunak indarra dakarrela egia izan arren, egi andiagoa dok indarrak benetako batasunik ez dakarrela, iñoz be ez yok ekarrita.

—Orduan zer egindo yoguk ba?...

—Zer egin diñok? Beste bide bat artu batasunerako egizko eta bakarra dan bidea.

—Bide ori zein dok ba?

—Ondiño eztok igarri? Ba nire ustez auxe dok: **Benetako batasunaren oñarria benetako maitasuna dok.** Ori barik batasun billa ibiltea amesetan ibiltearen urrengoa dok. Eta euskera arazotan be bai...

—Orregaz ez dok esan gureko, eure eretxikoak ez diranak euskeraren maitasunik ez dabenik?

—Maitasuna era askotakoa ta bakotxak bere erara aitatzen yoan gauza dok, eta ni enok iñor ukatzeko. Baña sentzunak diñostak **benetako** maitasun barik iñora ez goazala. Bakotxak gura dabena esango yok. Nik neurea esan yoat eta kitu.

—Orretan neu be eugaz ñagok. Euskera maite yabenak, euskera argi itz-egin, garbi idatzi, gai guztietan erabilli, txukundu, ta al dan guztian erabilten eta zabaltzen aleginduko dok. Ori barik barriketa utsa izango litzakek eta itz utzak aizeak eroaten yozak...

—Ondo esana. Gaurkoz naiko izango dok eta urrengorarte.

—Agur, mutil.

URIGOITIA



IDAZTI BARRIAK

Izena: Ikasketa bideen azalpena. (Guía de Orientación Escolar).

Argitaratzaillea: Urola'ko Ikasketa Alkartasuna. (Mancomunidad Cultural del Urola). 1970'ko jorraillean.

Guztiok dakigun lez, irakaste-arazoak, aspaldion, aldakuntza aundiak izan ditu. Ori ta guzti be, egoki dala uste dot idaztitxu onen barria emotea, bide batez gure irakurleak Urola'ko ikasketa-alkartasunaren barria izan dagien. Alkartasun oneik ain bearrezkoak ditugun ezkero, eredu on bat aurrean izan dagigun.

«Ikasketa-bidean azalpena» onek, dana euskeraz eta erderaz, lenengo sarrera bat dauka. Azpeiti'ko batzar nagusian emon eben itza beteteko ateraten dabe liburu au. Itz ori, ikasketarako organigramearen barria emango zutela izan zan.

Alkarte onen zeregiña, guztiz ederra, auxe da: «Gizaki bakotxaren eskubideei dagokienez eta Erraztasun Berdiñen Oiñarrilegeari jarraituaz, Urola'ko neskatxa eta mutil guztiei beren gogo ta almenen neurrian dezaketen guztia ikasteko bideak ipiñi nai dizkiegu, ez dirurik ezak, ez erri txikietan eta urrutiko baserrietan bizitzeak galeraziko ez dietan eran».

Gero ikasketen egiturea azaltzen dau: eskola aurrekoa, lenengo maillakoa, erdimaillakoa (batxillerra, olagintzarako, salerosterako, arti-lanetarako, buztingintzarako. Goragokoak: Gizarte-aokulariak, irakasleak, perituak, sendagille-lagunak, izkuntza-zaleak, eres-eskolak. Erdi-maillakoak: gizarte-zaleak, arrantzaleak, ostalariak, turismu-zaleak, zabalkunde-zaleak, lurgintza-zaleak, antzerkigintza-zaleak, antz-eder-zaleak, saleroste-zaleak, abesti zalea, urrun-idazletzarako, gorputz-ezierarako, ezurlari-eskolak, etxe-irakasletzarako, langintzarako.

Gero Irakaskintza nagusiak.

Ikasteko era guztiok nun eta zelako jakintza-oiñarria dabenak egin leikeezan argi agertzen dau.

Geroago, beste alde batetik begiratuz, l nengo maillaren, batxiller orokorraren t nagusiaren, teknika batxillerraren irtenbide agertzen ditu. Baita Urola'ko baillaran bert diran ikastetxeak zeintzuk diran be ba di Gero Gipuzkoa'n iru mailletarako diran ik tetxeak.

Azkenez, Liburu Zurian agertu ziran le gaien barria ematen du eta Nazio-arteko e ra-urtea dala ta, UNESCO'ren zuzendaria deia.

Onelako organigramearen berri-emate b gurasoak eta ikasleak bear-bearreko du Baiña gaur izan diran eta diran aldakuntz dirala ta, bear ba'da, berri-emate au zar eg da. Gaur, aldakuntzea egiten dagoan ezke ezin eguneratu. Uste dot, orregaitiño, al d tenean, onen antzeko beste berri-emate b egingo dutela. Urola'ko Ikasketa Alkarta nak. Erria otseintzeko bearrezkoa izango d

* * *

Izena: Euskal-idazleak: Juan A Tartas, 1666.

Antolatzaillea: ETXEBARRIA'tar JUA ANJEL.

Argitaratzaillea: «Itxaropena». Zarautz, 1971.

Eskintza: GARITAONAINDIA'tar GOTZON'eri.

Sarreran gure Juan Anjel'ek diñoskun Tartas Zuberoatarren lenengo euskal-idazl dogu. Idazle onek erdel-itzak artu arren arit euskerarena dau. Gaia Axular'enaren ant koa, baiña onen txairotasuna ta gatza jakoz agiri. Orthez'en, 1672'en beste id bat argitaratu eban. Bere izen-burua: **Arim penitentiaren okupazione debotak.**

Egillearen gorespen batzuk agertu ond ren, aditz-joko bereziak, itz bakanak, esak bitxiak, gai jakingarriak eta oarrak dak liburutxu onek. Azkenean, ondo aukeratut idaztegi bat.

Tartas idazlearen izena erriratzeko egok da idazti au.

OLAZAR MARTIÑ'EK

LIBURU IRAKURGARRIA

Liburu irakurgarria oraintxe irakurri dodana, euskaldunentzat irakurgarriñ iñun bada. Eztia darion liburu atsegingarri ta onuragarria. Loguregaren loguraz begi zabaldu ezin arren be, ekin egin bear. Onangoxe jaki gustagarria izan da nire Gozoaren gozoz atzak miaztu eragiten dauskuzan langoa.

Liburu ori Peru Abarka deritxona da. Juan Antonio Mogel'ek, euskal idazleen tean onenetakoa izan zanak idatzia. Leenago be irakurrita neukan. Bein ala birritan dakit. Orain barriren barri irakurri dot. Astiro-astiro ta boligrafo gorria eskuan dok la. Ta ara, liburu guztia marra gorriz zikindu dot. Au bai esaera bitxia, nirautsan neu buruari, ta marra gorri bat ipiñi azpian. Kontxo! zelako adizkia darabillen emen, e beste gorri-une bat. Orain liburu guztia gorri-gorri eginda daukat. Ume txiki batz zirriborroak izan balira be...! Ez, ez jat damutu liburu zoragarri au eskuetan ar izana.

* * *

Liburua zer dan eta noiz egiña izan zan jakingo dozu, irakurle. Edo ez dozu, agia jakingo; gu euskaldunok gure etxeko arazoetan jakitunegiak ez gara izaten-eta.

Ez da atzo goizekoa. 1881 garren urtean agertu zan lenengoz Durango'n. Arrezk geiagotan be irarri izan da. 1881 garrenean argitaratu zan arren, idatzi gutxi gon beera larogei urte leenago idatzi zan. Mogel, aren egillea, 1804 garren urtean il zan-eta Markiñako abade zala. Ba dairudi 1802 garrenerako amaituta eukala bere libur urte onetan berak idatziriko eskutitz batzuetatik atara daitekenez.

Mogel bizi zala zergaitik ez ete zan agertu? Orretarako bearrezko zan baimen lortu ez ebalako izan ete zan? Ba leiteke orregaitik izatea. Garai aretan be olako baim nak nekez lortzen ziran askotan. Mogel'ek berak leentxoago idatzi eban «Konfesio Ona» deritxon liburua argitaratu aal izateko gorriak ikusi bide ebazan. Onengana arengana jo ta ekin eta ekin eginda gero eskuratu eban liburua irarteko bear eb legezko baimena. Gure euskera orduan be oinperatua!

Peru Abarka zer dan? Nik baiño egokiago esango dautsu Mikel Zarate eusk idazle argiak «Bizkaiko euskal idazleak» izeneko bere liburu ederrean: «Itz-lauz alkar-izketa luze bat dogu Peru Abarka. Eta antxe agertzen da, bizi-bizirik, am zortzigarren gizaldiko euskal biziera; antxe ikusten doguz aldi aretako euskaldun fedea, oiturak, lanak, ipuiñak, bertsoak, esaerak eta abar. Baita erremienta, tresn abere, landara ta egaztien izenak bere».

* * *

Liburu oni gora aundiak emon izan dautsoez. «Bizkaian ez ezik, Euskalerrian a gitara den liburik ederrenetakoa da Peru Abarka», idatzi eban «Orixe»'k. Ta oraing Euskaltzainburu dogun Villasante Aitak «Historia de la literatura vasca» deritxan l buru mardulean onelan dirausku: «Euskal literaturan geien gaillurtzen dan liburu tako bat da Peru Abarka». Aitatu dautsudan Mikel Zarate'k, barriz: «Euskal-literatu rako bitxi eder bat da, euskal zale guztiak irakurri bear leukeen liburu egokia, on ratsua ta atsegingarria». Azken urteotan ainbat idaz-lan agertu dira or-emen, Pe Abarka ta Mogel aundiak egiña, idatzia ta, irakatsia gaitzat arturik. Mogel, izan b gizaundi izan gendun euskal esparruan, euskaldun guztientzat eredu ta jarraigar euskera eztitsu, jator, errikoi, aberatsaren erakusle.

Txataltxo bat ipinten dautsut zeuk ikusi ta ao-gozatu daizun:

PERU. Jangoikoak egun onak emon daiozala.

MAISU JUAN. Baita zuri be, adiskidea.

PERU. Berori baizen Jaun apaindu batek oiñak imiñi ardanetxe onetan? Toki gizon baldres, zantar, aziera txarrekoentzat obea da, berori langoentzat baiño. Ena Jauna. Abarkak oiñetan, txapel bat buruan, gerrestua gorputzean: au da nire apaind ria guztia; baiña etxagun izen onaren zalea nazan aldeti, ez oi naz sartu ardantegie nora ezean, premiñaz da ezin bestez baiño; etxakolako etxagun begiratu bati ondo e ten burua bat egitea gizon ospetsu, burrukari, ondatzaille, alper eta baldanakaz. En oraindiño iñok ikusi ardaoak igarota, gatx eginda, zabuka oiñak lokaturik, ez mut motelduta, ez begiak lausotuta, asko legez, euren osasun, ondasun eta arimen kalte


Nik uste neban bene benetako andikiren bategaz berba egiten nebala. Agaiti goan txapela buruti kenduta, lotsa nintzala berba egiten. Jakin baneu lenengo Barberu txar baiño etziñeala, enintzan Jaunka zugaz egongo, ezte bere buru utsez Eta Barberu errukarri bat, ta iñoren gatxaz bizi dana, gaisorik ezpadabil zer-e eztaukana, ain arro ta apaindu? Ainbeste soiñeko bitxidunez, eta ori astegun bur zurian, bidez zabilzala?».

PUXANA

ITZ-EUNDUAK

(X)

Etxebarria'tar Juan Anjel



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Izenordea.—B: Zugatz.—D: Euskal abizena.—E: Logura; Botal.—G: Lo egitera; Barazki.—I: Pago-leku; Su artze.—J: Argigabekoa (a. a.); Jogaillu.—K: Leku aretara; Lo egiteko tokia.—L: Bokal; Edatsua.—M: Gose-aldia.—N: Arte-langintza (a. a.).—O: Zoaz (ika).

GOITIK BERA.—1: Musu (umeak).—2: Bearra.—3: Logale.—4: Zoia; Konsonante.—5: Pago-leku; Zotal.—6: Zama-abere; Gariaren ondarra.—7: Edea; Oitura zarra.—8: Bustia (a. a.); Eskaratz.—9: Bokal; Emakume-izena.—10: Eztarri-otz lakarra.—11: Pixua.—12: Bizkai'ko erria.

IX'ren agerpenak:


Zearretara = Agota. — Eragiña. — ArnirozA. — Gale; Adin. — Abo; Eta. — Kitu; Ibar. — Adarka; Ia. — Ertilan. — aeraK.

Goitik bera = Agaka. — Erabide. — Ar; Lotara. — Gane; Urte. — Ogi; Kir. — Tira; alA. — añodeB ; Ak. — Azitain.—anarA.

ASMAKETEA

(VII)

Garatea'tar M. Luisa



ZER DAU EUSKALERRIAK?

VI'ren agerpena: **Nikola Ormaetxea.**

HIT PARADE

Orril'eko lenengo amabostekoaren neurketea jaso dogu. Ta barriz be esan bear ete-dogu ba?... Zorion dator txapeldun, bere «Bizi Beti Euzkerea» orrekin. Entzun ete dautsazu? Ez da aspaldian abesti ain politik idatzi.—Bigarren, zein uste dozu?... Zein ta Estitxu betikoa, bere «Bakarrik» zoragarri orregaz.—Irugarren, «Unai» bikotea «Galdua Naiz» abesten. Ara baiña, Parade onetan, zortzigarren, beste bat «sartu» da, etorri barria. Ta «biribil» ori alde bietatik ondo entzuteko, bere zabaltzale diran Distribuidora San Miguel. Torre, 3-1.º**koengana joan giñan, ta antxe, Kresala taldeko Ibarzola, Aulestia biak eta Solabarrieta'k abestu daben «Gezurra», ta beste abestiak entzun be. Ederra da zortzigarren geratu dan «Gezurra» ori, ta laister entzungo dozu bazter guztietan. «Egi Bidean» dau disko onek bere izena, ta urrengo entzun genduzan beste iru abestiak, zelakoak? Ikusten danez «Kresala»'koak, euren on-onenak, danak batera, or sartu dabez; Hit tartean agertzen dan ori ederra ba'da be, zer esan «Kristau Urak» eta batez be «Goratzea» abesti gozo orretzaz? Auxe, artu egizu ta entzun, ta ikasi. Ai, Dublin'en izan ba'lira!**

* * *

Kanta-berri. Zoritxarrak jo ete-dau ba? Bilbo'n egin bear zan abestaldia utsean geratu da; galerazo egin ei-dabe. Ekin gogor arrasatetarrok, aurkituko dozue nun bete utsune ori-ta!

* * *

Olazaran'dar Illari aitari, bere jaioterri Lizarra'n omenaldi eder bat egin dautsoe, ta orrenbeste ta geiago be irabazita eukazan. Jai ederra ta maitasunez betea. Domiña bi be eskeindu dautsoez, ta Txistualri Alkarteak Donosti'an izango daben urrengo Batzar nagusian, ezarriko dautsoez. An be beste omenaldi bat izango dau, ta Lizarra'ra joan izan ezin ebenak bera txalotzeko aukerea izango dabe. Euskaleresiak asko zor dautso buruñurdun lekaide jator oni. Zorion AGUR'etik.

* * *

Disko barri batzuk: Aitatu dogun «Kresala»'koen «Egi Bidean» ori.—Markiña'ko Ansola anaien txistu-ekiñaldi bikaiña.—Xabier Madina'ren «Gu Nagusi», sartu barria ta bostkarren goiko Parade orretan.—Ta laister, Algorta'ko Biotz-Alai'k batetik eta San Anton'go Abesbatza'k bestetik, Columbia etxeakin gertatu dabezan biribil bi, ta berealaxe «Uskal Mezea».

ASTI'TAR PERNANDA

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

AZKUE'REN IZTEGI AUNDIA

Barriz argitaldua ale bitan. Lengoak eta 5.000 itz geiago daroaz, Azkue jaunak arrezkero batuak.

HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE BIZCAYA

E. J. de Labayru'k idatzia. Zortzi ataletan barriz argitaldua. Lengoak eta egilleak galdutzat eukazanak bere ba-dakarz.

ANNALES DEL REYNO DE NAVARRA

Zortzi aletan au. Moret eta Aleson'ek idatzitakoa Naparroa'ko ta Euskalerri'ko edestia.

CANCIONERO POPULAR VASCO

Ale bitan. Azkue jaunaren bilduna ikusgarria; gizon orren lanari eskerrak, iñoiz galduko ez diran ainbat abesti ta doiñu.

REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS

Ogetabost ale. 1906'tik 1436'gn, urterarte Euskal-jakintzan gorenengo izan ziranen lan garrantzitsuak.

DICCIONARIO HISTORICO GEOGRAFICO DEL PAIS VASCO

Ale bitan, 1802'gn. urtean REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA'K argitaldua. Gaur erdi galduta dagozan izenakaz aberastuta.

NOTICIA DE LAS COSAS MEMORABLES DE GUIPUZCOA

Iru aletan barriz argitaldua au bere; Gorosabel eta Etxegaray'k egiña.

TA BESTE IDAZ-LAN GARRANTZITSUAK

Eskatu «La Gran Enciclopedia Vasca»'ra

Apartado núm. 1.510. — BILBAO

NARBAITZA TXAPELDUN



An zan igez be; bera ta Uranga, Arrate'n ezagutu genduzan, ezagutu ta entzun eurengandik. Narbaitza'k ogei urte ebazan, bat bez geiago ta zein ederto egin eban bertsotan bazkari guztia zear, Uranga'k zirikatzen eban, ta gazteak jo ta ke erantzun.

An zan aurten be, Narbaitza bakarrik, ta Narbaitza txapeldun barria. Zortzi egun lenago Errenderi'n, Bertsolari Gazteen —ogetamar urtetik berakoen— artean nagusi. Ogeita bat urtekin ba, gorengo mailara igo dausku, Eibar'ko Gorosta Ibarreko gazte jator onek.

Zoriona emoterakoan, eskua luzatu geuntzan; berea, giartsua, gogorra, betea, langilleарena... Narbaitza'tar Jon'ek, baserriko lanean dabillela, bertsoz beteten dau aizea be.

«Jon» —bizkai-kutsuzko eibartar euskeran azi ta bizi ba'da be, gipuzkoeraz diardu bertsotan eta izketan— «Nun ikasi dozu orren egoki gizpuzkoarren izkerea?». «Ia berez, ez det nik askorik irakurri, izketan bai, lagun eta erri askotakoekin sarri egin izan det gipuzkoera, ta ez al degu ba denok bat egitera eldu bear?». «Ta, etxean zelan egiten dozue ba». «Etxean geinetan eibartarrez egiten degu, ala ere, zearo oitu naiz gipuzkoera egiten».

Ta ara, 21 gazteen artean Jon atera da txapeldun, Eibar'ek, aspaldi ez-eta, or dauka txapeldun jator bat, ta bertsolaritzan gaiñera. Alkar-izketa onetan, bere anai Xabier be, bitarteko genduan. Au pozik agertzen zan Jon'en gorakada ori ikusita, ta esan euskun. «Orain gure etxean, Gorosta'n, Eskarai-errotan —or bizi da Jon— eta Eibar'en kalean —emen Xabier— euskeraz gogor irakurtzen egin bear dogu, ta bialdu egiguzuz zuen «AGUR» etik zenbaki bana amabostero». Ta guk be bai pozik jaso agindu ori.

Arrate'n giñan danok, anaiok, lagunak eta gu. Aurren Euskal-leiaketea zan-ta. Nork obeto irakurri ta idatzi. Sail bitan: 7'tik 10 urtera, ta 11'tik amaulara artekoak. Sariak be ederrak, diruz eta gauzaz. Ara txapelketa orren zeaztasunak:

NAUSIEN ARTEAN:

1.—Asier Etxeberria, elgoibartarra, 2.500 laurleko, Txapela ta geiago.
2.—P. Xabier Bastarrika, ataundarra, 1.500 laurleko, Txapela ta geiago.
3.—M.ª Dolores Etxeberria, zaldibitarra, 1.000 laurleko ta abar, ta onen ondoren sei bilbotar errezkadan, Beldarrain bi, Biar, Basterretxea, Muxika ta Aranburu neska mutillak.

TXIKIEN ARTEAN:

1.—Asier Laspiur, 10 urteko eibartarra, 1.500 laurleko, Txapela ta abar.
2.—Agurtzane Garcia, 8 urtekoa, elgoibartarra, 1.000 laurleko, Txapela ta abar.
3.—Miren Urzelai, 9 urteko legazpiarra, 500 laurleko ta abar. Lau elgoibartar, bilbotar bi ta eibartar bat. Sail bakoitzeko amar lenengoak euren saria jazo eben, ta txaloak nai aiña.

Gazterik asi dira umeok bizitzako ezbearrak edo garaipenak ezagutzen, ta alaxe bear, gero ludi onetan jokatzen jakingo ba'bade. Ala ta be, an zurubian bera gindoiazala, emakume biri auxe entzun neutsen euren mutikoaren aurrean iñarduela, ta ba'litzake onen atsekabea biguntzeko izatea be: «Alde aundi-egia jagon 7 urtetik 10'era, irakurten batez be, 7 ta zortzi urtekoak beste sail baten jokatu bear jeukene». Gero beratxoago beste neskatil bateri: «Fuboleko arbitruak moduan, emen be zapiak hetxerantza larregian». Ez genduan ondo entzun «etxe» ala «atxe» esan eban ta orregaitik idatzi dogu orrela.

Goizea euritsua agertu zan, aurreko egunean nai aiña euri egin be, ala ta be Arrate'n asko giñan. Ainbeste eze, D. Pedro'k igarri ez-eta, lagun mordoa jaun-artu barik bere lekura bota ebazan, ogi barik gelditu zalako. Au, amar t'erdietako Meza'n, Aldazabal'tar Peli zanaren alde entzun genduanean, gero, urrengo mezetarako ekarriko ebala geiago ta artu barik geratu ziranak amaiketan edo amabietan egingo ebela.


An ziran Arrate'n baita, 1919 eta 20 garreneko «kintoak»; ogetamar bat «gazte» —urdailletik bai beintzat— jarri ziran mai ondo jantzian. Bada-ez-bada, sendagille bi eurekin: Don Pernando Zuloaga ta Gimon jauna, au Bilbo'tik etorrita, ta ez uste izan iñor gaixotzen ba'zanerako deituak izan ziranik, eurok be «kinta» orretakoak izanda, zeiñek geiago orretara jataille etorri, ta ez txarrenetakoak gero.

IBUR

GARCIA TOTORIKA MARGOLARIA

Nere osabea be Galdames'en bizi zan; iñoiz ez ditut aaztuko aren itzak: «egizko errizalea izateko emen bizi bear da» ta egia da, Bizkai'ko Enkartazioetan dagoz errizalerik sutsuenak.

An bertan, Galdames'en jaioa da Jose Garcia Totorika margolari gaztea. Pozik ikusi neban bere erakusketea, ta



batez be, margazki zaleak egin eutsen arrera ona. Margozki geienak saldu zituan eta lenengo erakusketan ori ez da erreza izaten.

Zer ete-dakar gure Josetxu'k? Nere ustez erri-gosea, jatortasuna ta gure erriaren barrua erakutsi naia. Apalagorik ez dozu aurkituko, ta bitsetan egoan danekin izketan, iritziak eskatzen, kritika bidez ikasten, egunero.

Ona emen berak esan eustana: «Nik erria; gure baserritarrak eta gure arrantzaleak margoztu nai ditut; euren aurpegiak, gure endaren berezitasun guztiak adierazoz. Euskerea ikasi nai dot, ainbat ariñen, gure erritarrekin alkar-izketaka muiñeraiño obeto sartzeko, bere nortasuna obeto ezagutzeko».

«Arteta, Zubiaurre, Garabilla ta beste batzuk ondo aztertu nai ditut, nere ustez, nai ta nai ez, ori izango da nere bidea-ta. Or ikusten dozu nere asmakizun bat (Anboto'ko sorgiñaren margozkia), sorgiñak, lamiñak eta beste euskal-mitolojiaren gaiak maite ditut eta bilduma bat egin nai neuke...»

Asmoak, amesak, erri-kutsua ta errizaletasuna, ona emen gure margolariaren apaingarririk aundienak. Gure ustez, euskal giroaren «urdiñak» eta «orlegiak» ederto batu ditu ta alkartu; bere margozkiak ikustean, gure eresiak entzutean nabaitzen dogun dardarea sentitzen dogu. Euskal-erria goraltzeko bide asko dagoz ta Garcia Totorika ez da gure edestian atzean geratuko.

Zorionak Josetxu ta datorren urtera arte.

JOSU

ERRIETAKO BARRIAK

Bakio

Bakiotarrak pozik jakin doguz gure errian egingo diran aurrerapenen barriak, egizko aurrerapena izango da Gizarte-Etxea-ta. Bakio'ko gaztetxoak ikasketak egiteko txarto ibilli dira oraiñarte; asmoak beteten ba'dira, laister ikas-gela ederrak eukiko doguz eta ziñe-toki, batzar-leku ta abar. Pozgarria benetan kultura bideak aztertzeko leku egokiak izango doguzala jakitea. Orrez gaiñera, negu gogorretan aterpe alaia be izango dogu, erriko gaztedia batzeko lekua.

Ta, zer bear da? Bakio maite dabenen laguntasuna. Udan etorten diranak jatorriz bakiotarrak, asko dira, ez dogu uste laguntasunik ukatuko dabenik. Eta erritarrak? Geu gara, zatirik aundiena aukeratu ta batu bear dogunak, geutzat eta erriarentzat da-ta. Diru asko bear da, baiña danon artean lortzen ba'dogu ez da neketsuna izango.

Gure eskerrik beroenak D. Juan Maria'ri baita Gotzaiñari be, euren babesean eta Eleizearen itzalpean egingo dira etxegintza ta gaiñerako guztiak-eta.

Bakiotarrak, esku-zabalak izan zaiteze, zuentzat eta zuen seme-alabentzat izango da Gizarte-Etxe barri eder ori-ta.

ERRITAR

Aizarna

GAZTEEN EGUNA

Orrillak 20, Igokunde jaia, Gaztediaren Eguna Aizarna'n. Elizkizun bizi samarra gertatu da gaurkoa. Ez, ordea guzizkoa. Egin izan dituzte gure gazteek gogotsuago eta ganora geiagoz. Aurreko egunetan egin dituzten lanak dirala-ta, zorionak eman dizkie izlariak. Pozik entzunak dituzte itz oiek. Zor zaizkie zorionak, ainbeste ta ainbeste gazte izan bait dira beren aalegiña ipiñi dutenak. Ez dira, orratio, oraindik ere guzi-guziak dirubilla bakarrik ibiltzen! Erakutsi digute gure gazteek ba-dakitela beren dirua galduaz ibiltzen ere.

TXIRRINDULARIAK

Txirrindularien bakar-neurketa antolatu dute gure erriko gazteek, Azpeiti'ko «Lagun-Onak» taldearen babesean, Onela, «Aizarna'ko I'go Sariketa» jokatu dute txirrindulari gaztetxoek, Azpeiti'ko enparantzatik irten eta Aizarna'ko Santa Engrazi'ra arte. Banakako igoera, bakar-neurketa zutelako. Erderaz esan oi zaionez, «ordulariaren aurka» esan bear ote genduke? Nik esan bear banu, ordulariaren aurka ez-baiña, aldatz edo aldapa gogorraren aurka neurtu bear izan dituzte beren indarrak. Ez dira makalak txirrindulari gaztetxuok!

Larrinaga bizkaitarrak eraman du 1'go saria bai dirutan eta 1'go Kopa, «Loyola» txokolateak emana. J. I. Arranz gipuzkoarrak 2'gn saria eta 2'gn kopa, Tomas Bitarte'k emana. Ondoren, Albizu, Martinez, Padrones, Arranz P. M., Mayoz, Ortiz, Iribarren, Undabarrena, Gomez, Agote, e. a. Orrelaxe ogeita amarretaraiño. Oroigarri geiago ere banatu dizkiete: Aurrezki-Kutxa probintzialak, Onenak mueble-etxeak eta Aizarna'ko gazteek emandakoak. Txalogarria benetan antolatzailleen lana! Ainbeste moto-zale (bakoitzaren aurretik bat) eta ainbeste berebildun atzetik, danak laguntzeko gertu eta gogotsu. Egun gogoangarria ta atsegiña zin-ziñez.

ANTZERKIA

Arratsaldean eliz-aretoan antzerkia ikusi dugu. Alfonso Sastre'ren «La mordaza» euskeraz «Denok ixildu egiten gera». Asteasu'ko Kukute taldea izan dugu antzeslari. Euskeratu ere beraiek egiña da; eta ez dago gaizki. Egoki antzestu dizkigute gudagaraiko eta ondorengo zenbait jokabideren goraberak. Etzan aspaldietan orrenbeste ikusle bildu gure aretoan, auzo-errietatik ere asko baitziran. Esku-zarta edo txalorik asko entzun bear izan dute saritzat gure bixitariek. Eragingo aal diete beintzat gure txaloek, erriz erri ibilli ditezen.

ERTZIÑAPE'K

Basauri

EUSKERA IRAKASKINTZA

Aldi onetan, euskeraren etorkizunean gogor gagoz gure erri onetan. Ariz'ko eusko-ikastola barria egitea da gure asmorik andiena, baiña orretarako erri geienaren laguntzea eskuratu bear dogu. Euskotarrak dirala uste daben guztiak erakutsi bearko dabe, ta guztion artean sortu-arazi erri-giroa, ta orretara, gure aurrerapenaren ta jakintzaren oiñarria jarri.

Orain arteko Ikastoleari ez yako ezetariko laguntzarik egin, naita bere bitartez artzen diran laguntzak andiak izan. Gurasoak ez dautse jaramonik egiten erraztasun onei, euren seme-alabatxoei eskintzeko euskeltzaleok jarri doguzanei. Zergaitik? Ba oñexegaitik: euren seme-alabak euskerea ikasten diarduen artean beste ikasketak aztuko dabezala uste dabelako, naita atxakiak baiño izan ez, euren etxeetan be ez dira euskeraz itz egiten arduratuten eta, ta orretara ezin gintzakez iñora joan.

Erizpide suntzikorrak betiko amaitu bear doguz, bai goialdetikoen edo bekoen edo besterantzako koska zatarrak, eurakaz, daukagun batasun pitia ondatu baiño besterik ez dogu egiten eta. Guztiok jarraitu bear egikizunean, eta aurrera eroan, osorik bete bakoitzak euskeratzaz eta euskotasunean daukaguzan bearkunak, ta orrela laister egiztu Ikastola barria; danok arro ta pozik aurkituko gara. Zalantzarik bage, basauritarren euskeltzaletasunai esker, gure gazteen eusko eziketarako izango dan Ikastolea lortuko da.

Beste gauza bat da egiteko diran Basozelai'ko Alkargo-ikastetxe barria. Oneik Eziketarako Lege barrian dabe itxaropena ta Ezikera ta Jakintza ordezkaritzatik txindi laguntza izango dabela uste dabe euskerea goratzeko.

KOLDO

Arratia

Zer ikusiko ta zer entzungo Arratia'tik Barakaldo'raiñoko ibiltaldian barri ederrik asko kolkoratu dodaz, baiña, aizetan eta aorik-ao dabiltzazan barri guztiak esan eta azaltzeko aldirik egokien bizi ez garalarik, mamitsuenak ixildu ta mirrizenak agertzeko asmoz nator.

Kintana'tar Josu barakaldotarra dogu, arratiar askoren lankidea, ezaguna ta euskera ikasten gogor ari dana. Eta one emen berak diñoana: «Zenbat eta geiago alegintzen nazen ikasten eta irakurten, ainbat gitxiago ulerten dodaz aldizkari batzuetan argitaratuten dauskuezan lanak. Beraz, *Agur* ezagutu neban ezkero, *Agur* da nire lagunik onena, ulerkorrena, errezena ta erderakin ezkondu ez dana».

Josu'ren emazteak seme eder bat izan dau. Ugatzatzean Zigor jarri dautsoe izena, eta bere aitak, Josu'k izan dauan poz neurri gabea adierazo ta euskereari indarra emoteko, emen dogu, lagun eta adizkideen artean banandutako txokorretan ikusi doguna, txukun eta polito egiña: «Zigor'en Jaiotza, 1971'grn Jorraillak 28» Zorion sendi barri irukoteari.

AITITEAK LURRA JO

Zeanuri'ko seme Angoitia'tar Biktor, izerdi-kiratsik gabeko ogia jatera Bilbo'ra etorri ta emen bizi dana, aitz-mustur garaitan akerra baiño azkarragoa, perretxiko billaketan sagua bera baiño be bizkorragoa ta astean bi aldiz Gorbea'n izaten izan dana, belaun-ikareak jo dau. Alabeak eta suiñak lenen-semea izan dabe, Garikoitz, eta gure gizona, aitite egindala entzutean, makur-makur egiñik eta Gorbea'ri agur gixaxo bat egin ondoren, esku-makilla ateostean eskegi dau. Agur, Angoitia.

JAUNARTZEA

Bilbo'ko Sendi Deuna'ren eleizan, ume euskaldunen lenen-jaunartzea izan da. Uribarri'n eta inguruetan arratiar asko izan arren, euskal kristauen jaian gitxi batzuk besterik ez. Utsune a betetako baiña Zeanuri'ko Puxana'k iru bertso mamitsu abestu zituan guztion pozgarritzat.

ARANTZAZU

Zalbide auzuneko Iturriño'tar Juanjo'k, auzotegiko sagarrondoetan amillotsak maiteki ta jostalari abigiñan diarduela ikusirik, Loli erriko neskatil bizkorrari deitu dautso Aita J. Jose'ren aurrera, ta ametsik gozoenez betetako abia eratu dabe; ezkondu dira. Ametsok burututen Zoririk onenak lagun dagizuela.

IORRE

Aldi baten Atleti'n onenak ziranak, emengo gazteekin ostiko-pelotan jokatu dabe, adimenez epel diranai laguntzeko. Diru aldetik, buruz-atzeratuak garaille; amaika jokolari gazteen artetik, amabi izan dira Atleti'rako aukeratuak. Zaarrentzat mai oparoa ta txaloak.

LANDAJUELA'TAR A.

Zeanuri

Aurtengo urtean, beti lez, Zeanuri'ko errian Isidro Nekazari Deunaren jaiak ospatu doguz.

Jai asko izan dira baiña danetatik, batzueri buruz idatzi nai dot: Lenengo aldiz, Zeanuri'ko errira euskal musika taldea etorri da eta benetan be ondo bete dabe euren egin-bearra. Talde au Azpeitiko «Egan» izan da.

Pelota partiduak be izan dira: orain be, Zeanuri'ko pelotariak inguruko errietakoak baiño obeagoak dirala erakutsi dabe.

Euskal abesti barriaren jaialdi aundi bat be egon zan. Abeslari oneik parte artu eben:

Estitxu, Natxo eta Itziar, Patxo Areatzakoa, Ander eta Belen, eta Arteagako albokariak.

Euran soiñuak eta abestiak entzuteko, Zeanuri'ko plazea guztiz bete zan. Nai ta euria asi, jendeak bertan pozik jarraitu eban.

Abeslari oneik onak dira bene-benetan, baiña zeanuritarrak pozik gagoz domeka goizean ikusi eta entzun gendunagaz: erriko gaztetxo bi, txapeldunak urten eben gaztetxoen abestien txapelketan, «Goiko Jaun» abestiagaz. Gaztetxo oneik Manterola'tar Terese eta Mikel neba-arrebak dira. Ze polito abestu eben abots bitara. Aurrera, Manterolatarrak, etorkizun aundia abesti-arloan daukazue-ta.

Oneik eta beste jai batzuk izan arren (txistularien konziertue, txokolatada eder bat domeka goizean eta abar), gauza bat argi itxi gura dot: Zeanuri'ko gaztediagaz kontau daikela. Erriko agintarien diru-laguntasunagaz, gazteak izan dira jai oneik gertau dabezanak. Gazteak ondo bear egin dabe eta danari, batez be, arduradun nagusienak izan diranai, zorionak emon bearrean nago.

Azkenez, jaietarako bakarrik ez, beste erriko problemari erantzun bat emoteko, gazteakaz eta nagusiakaz be kontetea ondo egongo litzake.

Bide au artzeko asmoa dagola, entzun dogu, «erritarren alkarte nagusi bat» sortutea erabagita dago-ta.

Olan dala, aurrera zeanuritarrak eta barriro be, zorionak biotz-biotzetik.

ZEANURI'KO EUSKERA-IKASLEAK

Mundaka

SAGARRAGA'TAR POLENDIN JAUNA IL DA

Agur esan barik yuan jaku abade agurgarri au. Nok esango euskun orain illabete, Cataluña ta Huesca aldera aideak ta aldi batean izandako Arcusa'ko eliztarrak ikusten yoyala, andixek etorreran Miranda'ko geltokian beingobaten ilgo zanik? Olantxe izan da, gure tamalez. Bere bizitzazko 76 garren urtean Yungoikoaren besoetan bere gogoa itxi dau. Goyan bego.

Bere il-barriak umezurtz itxi gaitu. Beronek erria asko maite eban ta erriak berau be bai. Yaupari zintzoa, **abade apala, guztien otseiña, danok maitero artuten ebazanak.** Euskeltzale gartsua, **euskel-gayetan oso aitua, Azkue'k, Orixe'k, eta Otxolua'k eretxi-billa sarritan beragana yoten eben. Euskereak, ez eukon isilpekorik beretzat.** Errizale andia, **Mundaka'ko kondairaren aztertzaille zurra. Geure erriko Goiko Tala'n, itxas-begira, emoten euskuzan atzalpenak aoa zabalik entzuten geuntsazan.**

Illeta-eleizkizunetara erri guztia erdu zan. Alboko errietako abade ta prailleak be an ziran. Mezea euskera utsean izan zan. Meza emoilleak 5 apaiz Zirarda Gotzaiña buru zala. Sermoya elebitara Zirarda'k zuzendu euskun. Gaya: ildakoaren bizitzazko zertzeladak goratuaz eta aren pozak eta larriak damoskuezan irakatsiak agertuaz. Euskerazko zatia biotzeraiño eldu yakun, negar-malkoak begietatik erioguzala. Azkenez, sei abadek bere gorpua eleizatik atara eben.

Agur Polendin yauna, agur Egun Aundirarte!

Tamal-agurra Arrieta sendiari, aideari, erriko abadeai, lagunai eta erri guztiai.

LARRINAGA'TAR GERGORI

Gorbeiatik

Orrillaren lenengoan umetxoen jaunartzea, lenengoz: Gaur goizean guri - Jesus lenengo aldiz etorri - Poz eta eskerrak Berari - Egin dalako gure janari. Andra Maria'ren Eleiza nagusian, Zeanuri'n, argiz eta loraz apaindurik lenengoz jaun artu dabe ainbat neskamutillek.

Emen dogun Alkarte barriari bere zerbait esan bear: «Zar eta gazte» izenarekin - Alkarte bat Zeanuri'n - Umore ona dauken guztiak - Bertaratzen in alegin - Euskera dogu bada oiñarri - Gure izkuntz maitagarri - Beronen alde lan egitea - Gure asmo ta gurari. Ta an joan giñan ainbat bazkide Gorbeia'ra, 76 urteko amamatxo bat bere bai. Abestiak Basilio'ren txabolan, Agur Jaunak azkenean, birbilketak be bai tartean: Agur Gorbei, kurutze pean - Zagozan mendi ederra - Ainbat lagunek igon dogu gaur - Egiten zuri agurra - Batetik euskaldun - Bestetik fededun - Nai dogu ba guk jardun - Gorbeia lako mendi ederrik - Ez dago beste bat Mundu'n. Udabarriko egun alai batean nork ez daki Elizondo'ko Patxi'ren zugazti ta txabolak ikustera joaten?: Mota guztietako fruta edo igali - Yarriak dozuz bai ugari - Zeanuri'ko erritarrentzat - Izan zaitez yarraigarri.

Baita Orrillaren lenengo egunean, Bilbotar mendizale jatorra, Eugenio Ruiz Goitia, Gorbea inguruko mendi batetik jausita il zan, G. B. Oso ezaguna zan gure erri onetan.

San Isidro'ren jaiak 15'ean. Goizeko 9'retan kale-jirea; 10 t'erdietan Meza Nausia, basarriatarren gora-berak Olazar jaunak azaldu ebazan, ta bere laguntza eskeindu be; 12'etan abel-gorri ganadu peria, ta bertan baserritarako tresna erakustea. Arrastian pelota jokoaldia, Ubide ta Zeanuri'ko gazteen artean; ondoren Azpeiti'ko «Egan» soiñu taldea ta erriko txistulariak erromerian. 16'an goizeko 8'retan «txokolatadea», nik egin nebazan zurrutadak! «Txobil» izango zan, ain zan ba gozoa; gero biribilketa; 12'etan Ume-abeslarien sariketea, orrelango abeslariak berton izanda, ez dago kanpotik zetan ekarri besterik, arrituta geratu nintzan. Areatza ta Zeanuri'ko gazteen arteko pelotea 5'etan. Ta gero Estitxu, Natxo ta Itziar, Patxo, Xabier, Ander eta Belen, ta Arteaga'ko albokariak. Aurreko egunean lez erromeria gero. Aume eder bat be zozketan ipiñi zan, ta irabazlearen zenbakia 5.575 ei-zan.

Aurtengo jaiok bertoko gazteak eratutakoak izan dira, ta guztiz ederto atera dira.

Abeletxe'ri: Zer pasetan yako aspaldian, ez dot bere gazi-gezarik ikusi. Bein baten arduraz egon zan, Zeanuri'ko neskazarra ixildu zala ta, jakintza aundirik izan ez arren zeozer egin gura dot neuk be. Ia ba, Abeletxe, uda aldian Gorbeia'ra buelta bat egiten dogun.

GORBEATARRA

Ibaizabal

GALDAKANO

Lenago be esan genduan, errian sortuaz joyazan txaide barriei izenak ipintea, ta arrezkero orrei ta lenagokoei be izenak aldatu dautsez. Izen orreitan era askotakoak jarri dabez: erritarrei zerbait drausken batzuk, edo ez-ezagun beste batzuk. Ta aldi artan esaten genduan, egoki litzakela izan barriok; errian zerbait ongarri egindakoenak, euron ziñiskera ta asmoak aitakotzat euki barik, ipintea, baita tokietako basarri-izen edo antxiñako lekuizenak be. Ez dala orrelakorik egin autortu bear.

ERIOTZA

Orril'aren 17'gn. joan yakun gure artetik betiko Zorriketa'tar Bittor euskaltzale zintzoa, ta beraz AGUR'en irakurlea, jasan eban gaixo zitalak ainbat aldian min zorrotz-pean euki ondoren. G. B. adizkide ta errizale kementsua.

EZKONTZAK

Egun gitxiren aldian, mendigoizale jator biren ezkontzak izan genduzan, Orril'aren 19'gn Bilbo'ko Iñaki Deunaren txadonean, Aedo'tar Iñaki, ango San Ignacio auzuneko Gallastegi'tar Yolande neskatil liraiñakin. Eta il orren 22'gn Pardo'tar Xabier, baita mendizalea dan Ogaran'dar Miren-Edurne neskatilla argi-politakin. Zorionak AGUR'en bitartez eta ea zeuok lako mendigoizale kementsuak ekarten dozuezan.

BEDIA

Il onetan, Bagil'ean, erri onetako jai nagusiak ospatuko dira, Goi-jagole daben Yon Ugatzaillearen omenez egiten diran urterokoak. Lenago ospe andiko jaiak izaten ziran Bedia'ko San Juanak, azken aldietan baiña, beste errietako jaialdiak lez epelak. Igaz, gaztediari esker, ederrak. Aurten laguntzarik izango ete-dabe.

BASA-JAUN

Arrasate

LENENGO JAUNARTZEA

Orilla'ren 16'an, igandez, izan zan umeen lenengo Jaunartzea eta talde oso ederra batu zan. Oneitatik 40 batek egin zuten euskeraz Prantzizkotarren Eleizan. Onetzaz arituko gaiz.

Jai ederra izan benetan. Eleiza beterik aurkitzen zan umetxoez, gaiñera an ziran beren guraso ta senide asko. Esan bezela eleiza gainezka zegon eta asko zutik egon bear izan zuten. Meza Aita Garmendia'k emon eta izlari Aita Agirre izn zan. Au izlari trebea izanik ederto mintzatu zan umetxoei eta euren gurasoei. Itz legun eta samurrean an gengozan askori negar malkoak ixuri eragiñaz. Orretzaz gaiñera entzuteko era izan genun gure erritar abeslari dan Larrañaga'tar Joxe Mari bere abots eder eta bigunian abestuaz abesti politak len esandako Aita Agirre'ren laguntzaz. Asko orentzat arrigarri izan zan gazte onen saioa. Jarrai bide ortatik Larra maite orrek.

Esan bezela jai atseginña benetan eta malko asko ikusi nire inguruan. Eta izan be, nun dago eleizan izan ezik onelako biotz naitasunik artzen dan beste lekurik? Orretan eleizak bakarrik du indarra eta ez gaurko askoren «ateotasuna» rekin or dabiltza iñun atsedenik lortu eziñean.

Aurten gutxi izan dira euskeraz egin dutenak beren lenengo Jaunartzea eta izan leike euren artean ez diralako izan Ikastolako umetxorik ba-da oneik oraindiño gazteak bai-dira baña emendik bi urtera izango dute adiña gauza eder ori egiteko eta orduan ikusiko gure Ikastolaren bear izan aundia geukela. Egun zoragarriak izango dira egun auek gaur ikastolatan dabiltzan 350 umeetatik lenengo Jaunartzian.

LAIAKETA BAT

Emengo Idoiak eratuta izan da beste leiaketa bat abeslari eta soñu jotzailleentzat eta arein artean parte artu zuten Maiatzaren 19'an izan zan azken saioan Mutriko'ko Markel.—Eibar'ko Abots Berriak - Donosti'ko Aitor Badiola eta emen Arrasate'ko Nafa Bikoteak. Oneik danok euskeraz egin zuten saioa eta oso txalotuak gaiñera. Irabazleak izan ziran: Talde baten: Aitor Badiola ete bigarren Markel. Beste taldean: Lenengo Nafa Bikotea eta bigarren Abots Berriak. Euskaldun abeslari guztioi zorionak.

«DANOK» ABESBATZA

Egun berean eta «Gurea» antzokian emon zuan abesti saio berezi bat. Antzokia betebeterik egon zan eta ederto abestu ondoren txalo asko jo zuten entzuleak. Bai ondo merezidute be. Batez ere beren zuzendari dan Artzamendi'tar Juanito'k. Zorionak ugari danori. Abesbatz au joango da bere saioak emoten laister Olite eta Iruña'ra.

IKASTOLA ALDE

Urtero bezela aurten bere eratu Oñati'ko, Bergara'ko, Aretxabaleta'ko eta Arrasate'ko ostikolari «zaarrak» jokalari dirala. Maiatzaren 23'an jokatu izango da azken saioa, Aretxabaleta'ko Ibarra zelaian onelaxe: Lenengo irabazle izateko Aretxabaleta'koak eta Arrasateko'ak eta irugarren eta laugarren gelditzeko Oñati eta Bergara'tarren artean Partidu oneik ikusteko zaletasun aundia zan eta uste dogu jentia erruz joango zala. Iñori lagun bear badiogu bai benetan beartuta gagozala euskeldun izenik merezi bear badogu.

MUSAKOLA'N JAIAK

Auzo ontako jaiak igaro dira eta bertara erruz etorri da jentia. Izan be jai politak eratu dituzte auzoko gazteak: Eleiz-jaiak, erriko eresbatza, dantzariak eta abar. Auzo onek gaur bai-ditu bost milla biztanle baño geiago eta erri aundi bat dirudi. Orain 15 urte dala ezin izango milla eta ikusten danez gorakada aundia egin du.

UDALAITZ

Bermeo

LANEAN SUTSU

Euskeraren aldeko ekiñaldia aurrera doa. Euskerazaleak *alkarteak eratuta asi dan izenpetzea gure errian gogor doa. Neska mutil talde eder bat ari gera lan onetan, eta esango neuke ederto daola erabat. Ikastetxe ta ikastoletako irakasleak be asmo ta gogo ona adieraso dute lan au aurrera eroateko.*

Guraso ta gazte guztiok, aurrera gure EUSKERA maitearen alde!

ITZ-EMONA BETE

Gure lagun Gotzon Aitaren asmoak aurrera. Bizirik zala izan zitunetik amets bat, ots: Maiñu'ko iltegia ta eleizea barrizteko amets areik, ba-dute jarraitzale asko, baiña, gauza guztiak bezela, baita oztopoak ere. Lan au amaitzeko dirurik-eza. Bere lagun izan giñanok, biotzonez ta esku-zabalez eutsi bearko dautsagu lagun maiteak amets egin ebana bete nai ba'dogu.

ARRAINTZA

Antxoa sasoia dala-ta, Bilbo'ko izparringietan etorri da oraintzu, Bermeo'ko arraintzaleen lendakariak eta Ola-gizon batek, kostera txarren barri emoten agertu daben iritxia.

Ola-gizonaren iritxian, antxoarik-ezaren errua, txalupen aurrerakuntzak alde batetik, eta bestetik topea'*gaitik arrain asko itxasora jaurtzen dogulako ei-dator. Au diñot nik: Aurrerakuntzak kalte aundia egin dautsola arraiñari? Danok dakigu... baiña orren aurka ez gara joango; ta arrain illa topetik kanpora lagatzen dogula? Ez nago berorregaz, norberantzat baiño geiago arrapatzen dogunean lagunari emoten dautsagu.*

Aitatu bear zala uste dot, orain amar urte jaurti gendun arrain mordo a, erosi nai ez ebeelako izan zala.

SEGUROAK

Arraintzale arloan seguroak aldakuntza aundia daukee; gaixoarenak eta zauriluenak ez dira bardiñak, naizta bardiñean ordaindu.

Guretako bat gaixotu ezkero, joan osagillearengana ta beriala nai dogun osagille ospetsu batengana bialtzen gaitue, itz geiago barik. Baiña dana aldatzen da zauriluak garaneko. Zauriluarentzat dana oztopoa, ta osagille aukeratzerik ez, eta eguneko irabazitik, zer? Ez ete da, gure aldetik kezka gitxi agertzeana, ta zuzendu bearrean dagozenen ezer ez egitea?

RENTERIA'TAR J. ANDONI'K

Amezketa

Nor, Euskalerriko mendizale, ez da igaro emendik? Geienak bertatik igaroak dira Aralar'ko gaillurretara igotzeko asmoarekin. Eta, baita egon Euskal Mendizale Batzak zuan etxean. Eta, bertan, zaindari zan Bixente'rekin itzegin. Nork ez du Bixente ezagutzen? Orregatik euskal mendizaleak bere garaiean egin zioten omenaldi bat. Merezi zuan.



Baiñan oraingo ontan, tolosar mendizale talde batek, sendi artean bezela, omenalditxo etxekoi bat egin diogu. Ona argazki onetan tolosar mendizale batzuek bilduta berarekin, etxetiar bazkariaren ondoren.

UXOLA-TXIKI

Tolosa

«AGUR» ZORIONETAN

Apurka-apurka baiña urrats sendoaz zabaltzen ari zera. Zure indarra: euskal-gogoa salbatzeko eragin sutsua. Onegatik, euskalarimaren aurkako «erreakzionarioak», zu «erreakzionarioa» zerala esaka dira.

Orrelako «erreakzionarioen» ergelkeriak ezin obeak dira zu, AGUR maite orren izen ona ta, orain esaten dan bezela, dakartzun esan-naia «mensajea» onartzeko. Zorionetan, bada, zu, orrelako «erreakzionarioak» «erreakzionatzen» dutelako zure aurka!

Bimitartean, emen dituzun irakurle ugariak, poz artu dugu amabosteko egiten zeralako. Beste orrelako urrats sendo bat eta laister zaitugu... asteroko. Ai! Noiz eguneroko? Amets dagigun...

ONGI IBILLI

Nere adiskide ta euskaltzale jator dan Aranzabal'dar Biktor'en semea, Kepa, auspojotzaille ta abeslari trebea, Miami'ra joan zaigu egazkiñean. Uri nagusi onetan, «Bocheros» abeslari taldearekin alkartuko da alkarrekin munduaren zabalean abesten ibilteko.

AÑARBE'RI

Idazle iaio dan Errenderi'ko «Añarbe» adiskedeari bostekoa eta zorion AGUR'en senide artera datorkigulako. Laister bilduko gaituk euskal-idazle geienok urrakaitz izango dukan sorta batean.

EZTAIETAN

«Udaberri» taldeko dantzari bikain dan Agirre'tar Iñaki'k emaztetzat artu du, Izakun'go eleizatxoan Arsuaga Ir[illegible]ta'tar Itziar andereiñoa. Er[illegible]ari!

ANTZERKI SAILLEAN

Antzerkiak saillean emateko asmoetan dabiltz Tolosa'ko CIT'ekoak. Saio auek Uztail-Garil'aren barruan izango dira: bost antzerki euskeraz eta bost erderaz. Antzerkiari aurrerabide bat emateko asmoaz dabiltz. Eta, batez ere, euskerazkotan, euskal antzerkigilleak, berdin idazleak edo antzezlariak, izen batean ta aurrerabide batean ipintzeko.

Antzerki taldeak zer-nai xeetasun jakin nai ba'dute, idatzi besterik es dute CIT'era, edo idazle oni. Aurreratzen dut, diru laguntza izango dala.

Onetzaz izango gaituzute berriro zuekin.

UXOLA

Zestua'tik

Larunbatak 8, gaueko 9,30'tan eliz-ondoko antzokian, Zestua'ko ikastolak eratuta ikusgarrizko jai-aldia izan genduan. OSKARBI taldea. GURE AMETSA, Zestua'ko taldea. Azkoiti'ko «EUSKO GAZTEDI» ta JOSEBA deunaren ikastetxeko taldea.

Maria Jose Arregi amalau urteko neska, Alemania'n Europako eskuko-soiño-jotzaleean txapela irabazitakoa. Maria Belen Vigeras amaika urteko neska, Paris'en Europa'ko eskuko-soiño-jotzaleen NOEL saria ateratakoa. Eta azkenik Ikastolako aurrak, bertsolari. Antzokia ia dana bete zan, baiña usten dut ikastolak diru aldetik dadukan arazoa ikusita askoz Zestuar geiagok joan bear zutela.

Arregi ta Vigeras'en saioak zoragarriak izan ziran. Zer esanik ez, Joseba deunaren taldea Sagarzazu'tar Joxe Mari Zuzendari zutela, txistu ta esku-soiñugaz eskenitakoak.

Zestua'ko taldeak «Gure Ametsa», lendabiziko ager-aldia zuten eta oraindik gaztetxoak diralarik, egia esateko talde polita ta etorkizunari begira eduki genezake itxaropen, lendabiziko aldiz izateko egoki aritu ziraden.

Ikastolako aurrak bertsoak abestu ziguzten, abesti-era au, ezin ukatu, gaurko eztia dugula. Ondo legoke gero ere gisa ortako zabalkundea, bertso ta oiturak nainora erraiñaturik. Eta bukatzeko, «Oskarbi-taldeak amar abesti zaar eta berri eskeiñi ziguzten. Txori antzo, abeslari beiñere baiño iaioago, Erromero jaunaren ardurapean ezitako talde atsegiña.

Iru bider Zestua'ko ikastolari laguntzera etorriak, erri-erraietan sortutako taldea, errimagalean asi ta bizi. Nolaz ba, erri-kutsurik aien abestiak ez dute izango. Biotzez millaesker.

Iriondo'tar Jose Mari'ren izena aipatu gabe nola ixildu, gaur euskeraz irrati, jai-aldi e. a. aurkezteko euskalerrian daukagun onenetakoa. Zestuarroi, bai jai-aldiak eratzen eta aurkezten amaika aldiz lagundutako gizona. Zestuarron eta ikastolaren aldetik eskerrik sutsuenak, gure ikastolako aurrak etzaituzte aaztuko.

Jai-aldiaren bukaeran antzokitik irteeran, askoek au zioten: Erri-oitura auek ez dira aaztuta utzi bear, au ostera, antolatu bear da, Erdi-arotik datorkiguzan erri-abesti zaarrak diranez, jai-aldi auek maizago eratu bear dira. Erri-entzuleak ba-dauka emen zer ikusi ta zer ikasi, au da: ez gendukela nai jai-aldi utsez gelditzea, jai-aldi auen ondoren gurasoeri bereziki zer pentsa-arazi baizik.

Zestua'n ez dakit zer gertatzen dan, baiña kalean euskerak atzerakada aundia egin du. Ta ez kalean bakarrik, ba'dira baizar-tokiak «Centro Parroquial» eta txikien «Jolas-toki», ta biltoki auetan, Zer gertatzen da? Joan zaitez noiz nai, nai duzun orduan, eta euskeraz mintzatzen entzutea «TXIRIPA» bat izango da. NORK ERRU?

SAGARZAZU'TAR JOSEBA

Zaldibar

SORTERRIA UKATU?

Naiz ta gizartean gitxi izan, ba-dira bat edo beste, euren ustetan, zein dan ludiratu ziran uria adierazotea txikitasuna deritxoenak be. Txarragoa gaiñera, ezagun ez diran tokiren baten aurkitzen diranean, eta norbaitek zein aldetakoak direan itanduten ba'dautsoe, bere egizko jaioterria izildurik, erkiko uriburua izendaturik erantzungo dautse, nortasun andiagoduna eritxiko dotselakoan. Gauza orren etsaia izan-edo enegan beintzat, beti izan dot arrokerizkoa, ERMU dala nere jaioerria esatea.

ERRI BI, MAITE BI

Naiz ta nere aitamak, txikitxoa nintzala, bizitza aldakuntzara beartuta aurkitu ZALDIBAR onetara, ta ondoren, urte batzuek atzerriratuta igaro dodazan arren, barriro bertara biurturik, pozarren nago berau dalako nere begiko alderdia, gaiñera, uritxo biok egiten dabelako giputz anaiekin mugarri.

Nere aldetiko maitasunik aundiena opaltzea neu sortu nintzan ERMU uritxo orreri bear izan ba'dot be, biotzekoa dot baita ZALDIBAR auxe be, inguruan dodazan adizkidienkandik artu izan dodan begirapena, larregi andia dalako, ta orregaitik, lerro onein bidez, nere eskerrik beroenak emotera beartuta nago.

«AZKORDIN» GAIÑEAN

Naiz ta bere burura igotea guztiz erreza izan, izardia lodi ixuri bearra izan neban, zelai garbi-garbiak ziranak orain ler adartsuz beterik dagozelako ta onein azpitik, sasiz estalduta, bardin.

Danok gara bakotxaren almenean daukaguzan alegiñak ipinten doguzanak norbere erriak aintzatuteko, baiña ZALDIBAR, beti izan da goralpen orren jabea. Orduren bat igaro neban alde guztietara begira arreta osoan jarririk, eta nere aldozpenera sartu zanean, gomutan neukan antxiñako argazki a, auxe izan zan araberea gogoa oso-osorik ituntzeko.

Orain urte batzuek dirala, agirian aurkitzen ziran basetxe guztiz alaiak, ler zugaitz itzaltsuak inguratuta daukoez, ta onen ordaiñez, len zan ixiltasun baketsua, aldaturik dago geituta dagozan burdin-oletako zarata ikaragarriakaz. Orixe da «Azkorgain» menditik ekarri neban gomutakia, bat be atzegin ez jatana.

UDABARRIAN GARAIPENA

Urterik urtera, negua danontzat oneza izan da, begien aurrera dana illun agertzen jakulako; azurrak be gogortzeraiño; gazteak diran eta zarragoeri kemena kentzen dauskun indartsu a!

Gomutan dot ni gaztetxoa nintzan mendean, gaztelerritik etorritako irakasleak, euskeratzaz guztiz azpiratuta euki ginduezala, ba, ikastaro barruan berba bat gure izkuntzan egitea, naiko izaten zan zigor garratza bizkarreratzeko. Naiz ta larregian izan ez, gaur egunean zer edo zerezko baimenakaz lortuta dagozan ikastoletan nabaitzen dan giroa, benetan, udabarriak emon oi dozkun baikortasunekoa da.

Ikusgarria da, bertara joaten diran txikitxoak eskaintzen doskuen etorkizun dirdiratsua, benetakou dabarri alai ta loretsua.

EZKONTZAK

Adierazo doten lez, udabarri bultzalari, aurrera jokatzeko erdi bildurretan egozan ezkongaiak be, guztiz adoretsututa ipinten ditu. Aldi luzean alkar maite ziran itxuran agertzen jakuzen ezkongaiak, Orril au aukeratu dabe, amesa eben lez, alkar-lokarritzeko: Intxaurraga'tar Sabin'ek, Miren Terese'kin; Zelaieta'tar Karmel'ek, Zuazo'tar Amaia' kin; eta Tadeo'tar Karla'k, Unzueta'tar Miren Karmele'kin. Guztiori opa dautsegu amaigabeko zoriona.

MAORTUA'TAR MARTIN

Bilbao

MERKABILBAO

Aspaldi batetik Basauri'n eregita geunkazan Merkabilbao'rako tegi-ormadiak, asi dira zaratatsu ta urduritsu Bilbo'ra ezeze baita inguruetako erriei ere euren barnetik ainbat eta ainbat sal-erosgai bialtzen. Zabalaldia izan zanetik aste batzuk bakarrik igaro dira ta uri barri bat Bilbao ingurumarietan sortu iakula desakegu. Gure «Merkabilbao» ori luze-zabaleraz 230.000 metro lauki guztiz, bospasei etxetak ornitu oi dabe, ots, arraiñena, barazki ta ortuariena, igaliena, izotz-gela, idazgela ta gela nagusi orokorrarena ta abar. Bere alboan, denporaz ausaz bearrekoak izan leitekezen asmoz, egundoko zabaldegi-usguneak ditu. 2000'gn urteraiño ondo be ondo eltzeko balio leitekezenak eurak.

SOMERA-GUENKALE

Bilbo'k Merkabilbao'gaz irabazi ba'dau, Ronda ta Somera betiko kale zar orreitzaz beste ainbeste esan desakegula deritxat. Gaurdanik ez dabez ez goizaldiko zarata-durundak izango ziur-ziur. Ume, zaar eta gaixoak emendik aurrera patxadaz luzatu leikee euren lo osasungarria. Baiña ez ei da au bakarrik. Guenkaletarrak batez bere, Europa'ko kale politeneitako bat eukitea otu iakela, ta iraduz, Garil'erako lanak amaitzeko ustea dabe. Milloi bi laurleko or-or ordaindu bearko dabe kaleko azpi-ezarriagaitik ta beste milloi erdi etxe aurre-aldeen margozkiagaitik. Arraio pola! txit aberatsak dirudie benetan. Baiña ondo konturatu ezkero bearrezkoa eben aulako barriztea, beste zazpi kaleak darabillen gaurkotasunaz bardintzeko ta aal ba'da, gaintzeko.

AUSPO-SOIÑUAREN XIV TXAPELKETEA

Orrillaren lenen eta bigarren agunetan Alsasua'n izan dan txapelketan, gazteen artean, iru lenenak bizkaitarrak izan dira. Garaille Luis Angel Sarobe durangoarra autatu eben. Bigarren Asier Loroño bilbotarra izan za, ta irugarrena Alberto Prada erandiotarra.

Adiñekoan artean, txapeldun Angel Postigo San Salvadortarra, onek garai-ikur bi jaso ebazan. Bigarrena irundar Carlos Iturralde' rentzat izan zan, ta irugarrena Juan Carlos Agirre algortarrak irabazi eban.

Orain Lisboa'ra doaz, ta ango txapeldunak, bi gazteen artekoak eta beste bi adiñekoak, Irail'ean Pola'ra (Yugoslabia) joango dira ludi osoko txapelketara. Zorionak benetan opa dautsuegu ta ea Euskalerriruntz dakarzuen ludi guztiko garai-ikur ori.

ARREGI'TAR JOSU

EUSKAL - ERRITIK BEGIRA

Abdul Jakar, Mohamed Ali lez kirolari ezaguna, ta au lez baltza. Ez eban ori bere izena, orain, ezkontzerakoan artu dau, ingles kutsuzkoa itzita. Baltzok, euren nortasuna erakusten ta indartzen, azaleko margoa baiño Jaungoiko zaletasuna dabe indartsuagoa. Orrela izan da gure erria be orain arte, norbaitzuk baiña ososorik indar barik itzi nai gaitue. Urtzi, Jeoba, Yaube, Ala... Bat dira danok, eta zer ete-diño gure ezebezaren goratxistuka au ikustean?

* * *

Orain agertzen danez, De Gaulle'n inglesenganako kezkea izkuntzarena zan; prantzera itoko ete-eben Europa'ko Alkartean sartzen ba'ziran. Ara or Ponpidou orrenbestekoak esaten ateak zabaltzera beartu danean.

* * *

Ateak zabalik! Nai ete-dau baiña ingles-erriak sartzerik? Agintariak ez dabe nai erriari galdetzerik, diputadoeri baietza etara baiño, zelan-edo-alan, arin baiña. Bitartean, Bromsgrove'ko auteskundeetan, ezezka diardu erriak.

* * *

Ta urdailla betetearren inglesak izkuntzea salduko ete-dabe ba? Ori diño Geoffrey Rippon jaunak; Europa'ko bizierea Inglaterra'ko baiño gorago igo dala, ta orrek sartu-araziko ei-ditu.

* * *

Gustav Husak txekoslabiarrak, eskerrak emon dautsoz Brezhnev'eri, bere anaiak zapaltzera etorri zalako orain iru urte. Ba-dago zer ikasi itsututa ez ba'gabiltza.

* * *

Markoa igarian itzi ba'dabe be, ta gora joan, ara dollarrak oindiñok Europa'runtz. Bear-bearrezkoa izango ei-da, uda onetan, markoa, legez, gorago jarrita itzitea.

* * *

Elko, Wells, Winnemucca ta Mc Dermitt'en euskaldun lagun asko itxi genduzan, orain Elko'ko Euzkorria jaso dogu. AGUR'en zorionak urriñeko anai biotzekoak, eta gorantziak Koskorrosa, Goikoetxea, Baraika, O. K. Motel, Star eta gaiñontzekoai; jarrai bialtzen, gurea be izango dozue-ta.

* * *

Txistulari Aldizkaria be ordaindu egin bear da, emendik egunen batzuetara or elduko yatzu contrarreembolsoz 125 laurleko txartela. Egon zain eta itxi diru ori eskuan, atzera joan ez dadin, ta lan ta kalteak alperrik ez orretan dabiltzaneri ezarri.

BEGI-BI

KARDABERAZ BIZKAIAN

AGUR'en gai bat irakurri dot Kardaberaz'etzaz, bere eunurteurrena dala-ta. Ta nik ere zertxobait esan nai nuke berberatzaz, Bizkai aldean lan goragarria egin ebalako.

Josulagunak Maria Muñoz kalean, orain San Juan'en eleiza dagon alboan, kolejio bat euken. Ta aita Kardaberaz etxe orretan bizi izan zan aldi batean. Antxe bizi zala, itzaldi garrantzitsu bat Bilbo'ko San Anton eleizan egin eban. Garai artan, Gorpuzti-jaia andikiro ta egun bitan goraltzen zan Bilbo'n; Gorpuzti egunean Santiago'ko eleizan ta zortzigarren egunez San Anton'goan. Bigarren jai au, erretorearen baimenagaz, Alduniak antolatzen eban, Aldundetxea San Anton'go eleiza ondoan egoalako. Baita Aldundikoak ere billatzen eben mezarako izlaria, ta urte orretan aita Kardaberaz itzaldia egiteko eukeratu eben.

Milla zazpireun ogetamairuko urtea, bagillaren amaikagarrena. Eleizea gaiñezka egoan, bai agintariak bai Bilbo'ko eleiz gizon geienak, baita erritar ugariak ere. Aita Uriarte idazlariak diñoanez, izlariak Jesus'en Biotz'aganako maitasunagaz suturik egoalarik (edestiak diñoanez Jesus Biotza sarritan agertu yakon berari), aukera onegaz baliatu zan Jesus'en Biotz'arenganako onespenatzaz itzaldi sakon eta gartsua egiteko (Iberia guztian lenengoz), jakin bear dogun gauzea da, ba, ordurarte Jesus'en Biotz'aganako oneraspenik edo deboziñorik oraingo erara gutxi eta ia ezertxo ere ez zala ezagutzen emen.

Euskaldun guztiok dakigun gauza da aita Kardaberaz'ek Euskalerri guztia arakatu ebala batez ere euskerazko itzaldiak egiñaz eta, jakiña, Bizkaia ere bai. Munduko lenengo Jesus'en Biotz'aren alkarte edo kongregaziñoa Elorrio'ko errian berak atondu eban. Baita Bilbo'n eta Elorio'n ere Jesus'en Biotz'aren aldarak ipiñi: Bilbo'n San Andres (orain San Juan izenduna) eleizan ta Sorkunde Garbiaren eleizan Elorrio'n. San Juan'go eleizan aldara-buruan eta ixpilu artean biotz bat bakarrik agiri da. Eta Elorrio'n Jesus'en Biotz'aren olio-marrazki eder bat. Berberak Elorrio'ko aldundun etxearen aurrean ipiñi eban, baita oraiñarte ere bertan egoan, Jesus'en Biotz'aren aramarri bat.

Euskeraren alde lan ederra egin eban bai itzez eta bai idazkiz. Askoren agotik entzun dogu eleiz-gizonok ez dogula olakorik egin bear. Eta beste batzuk diñoe santutasun-bidean bizi diranak euskeraren aldeko lanik ezin daikela egin. Or dogu aita Kardaberaz santutasun gorengo maillan bizi izan zan gizona (Elaizan, ooregarri edo benerablea da bera), euskaltzale ta euskaldun kutsu-zabaltzaillea. Izan bere gure euskera kristau gogoen oiñarri ziurra da. Euskaldun lez eta kristau lez, gure antxinako kristau-euskaldunak goratu bear geunkez geitxoago. Baita ere eurai ur-urretik jarraitu gure erriaren izate ta indarra zaintzearren.

Ba-dogu oraindik erri bat kristau zintzoa dana. Ta kristautasuna euskeragaz landua izan dauana. Lotsagarri ta galgarri izango litzake kristau oneri euskerea kentzea. Kristautasuna bera-beraka gogorra egingo leukelako euskera galtzean. Argi ikusi dogu euskal liturjiagaz euskaldunen kristautasuna asko geiago biztu ta indartu dala. Orregaitik, ba, guk aita Kardaberaz'en antzera, geiago ta geiago erabilli bear geunke euskera maitea kristautasunari begiratuaz. Amatxoren altzoan ikasi daben euskerak euskaldunen biotzak errezago berotuten dituelako. Arazo orretan gabiltzanok ori egi andia dala ondo dakigu.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

SINDIKATOAK ETA GAZTEDIA

Langille arazoa, langilleak berak erabakitzeko arazoa da. Langilleak bere mundu berezia du, bere arazoekin, bere jokabideekin ta bere garaitz eta zanpaaldiekin. Langilleak bere anai langilleek eskeintzen dioten bide zailla askotan artuko du, ta «señorito» izatetik langille izatera igaro ez diran sozial-teorikoek erakusten dioten lorez itxuratutako errexkeri bidea zapuztu.

Langille arazoa, atzo atzokotasunezko burrukan eramana izan ba'da, gaur-egun gertakizunak eta aldakuntzak gure gain amilka baldin ba'datoz, biarko egunerako, etorkizunerako gertatzen joan bear degu.

Sindikalismoak, entzungo ba'ditu ere, teori zaratuatsuetatik gutxi itxaron dezake; sindikalismoa suntsitua ibili bear du eguneroko goraberetan, uretan arraia dabillen eraberean. Sindikalismoa lantegi bakoitzean, probintzi bakoitzean eta Laterri bakoitzaren arazoetan murgildua bearko du bizi al-izateko. Gizon bakoitzaren gaur-gaurko gorabera du bere arazo.

Sindikatoak, antziñean sendotua eta gaurkoan indartua baldin ba-da ere, biarko begiz, etorkizunerako begi zabalez begiratu bearko du aurrerabide orretan. Eta etorkizuna, zeiñena da bada, gaurko gazteena ez ba'da, edo obetogo esan biarko gazteena ez ba'da?

Biarko gaztea gertatu egin bear da, askori gertatu zaiena gertatu ez dakien; urteak igarotzen utzi ta urtez eta espirituz maxiatutako zaar asko baiñon zaarrago biurtzea ardandegietako itz arroxkoetan, iraultzakeri putzetan.

CMT'ek ere gaztediaren arazo au erabilli du bere Batzar Nagusian: Gaurkotasunean gelditu bear al du sindikalismoak? Edo etorkizun berri bat osatzeko duin ote da?

Bearturik gaude —zion izlari batek— europar sindikalismo bat sortzera lengo oiñarriz, baiñan gaurko eta biarko gaztediari begira. «Europa'ren aitak» ixtorian sartu dirala pentsatzen duten gazte oientzat, europar, gizarte batean gizon azkeak bezela bizi nai dutenentzat, eta gizadiaren aurrerapenerako teknikak berak ere menderatu nai dituztenentzat osatu bear degu gure sindikalismoa.

Baiñan ba-dio berak ere —izlariak, alegia— gazteentzat sindikalismo bat berritzea, iñundik ere ez duala esan nai pioneroak, zaarrak utzi zigutenari traizionatu bear diogula, ori ez. **Gaurkotasunez betetzea, etorkizunerako biotz-zabal ateaz jantzitzea, orixe da danontzat ekintz gorangarriena.**

Sindikatoak egunaren argira dabiltzan tokietan, aldaketa au egitea ez da oso zail. Berriketa aundirik gabe, errez sartu izan dirala gazteak agintaritzan, eta indarkeririk gabe sartu, garbi ikusi izan degu. Aitortua gelditzen da, egunaren argira gazteak artzen zuten ezikera eta antolamena ere bestelakoa zala.

Azke izanik, gazteak gogorkeririk gabe aditzen dituzte zaarren erakutsiak, eta konturatzeke, ia oartu gaberik zaarren esperientziarekin egiten dira.

Zaarrak eta gazteak bata besteen bearrean gera. Jokabidea: erakutsi beartu gaberik; eta errespetoz, entzun bederik. Ez det zalantzik onela jokatzen ba'degu, langillearen mundua obeagotuko degula.

OLAZABAL'DAR XABIER

MAXIMO GISASOLA

EUSKO MIXIOLARIA

Los Rios'ko Mixiñoak eragozpen andiak izan ebazan asieran. Alakoetan, buru zan Maximo Gisasola'k esaten euskun: «Ez bildurtu, mutillak, asia erdi egiña, egiña urre gorria». Eta bertako gauzak okerragoetara zijoaztenean: «Ez bildurtu, mutillak, egikizun andi guztiak izan dabez euren eragozpenak eta oztopoak». Eta dana ankazgora joateko arrisku gogorrean jarri zanean: «Ez bildurtu, mutillak, naiz eta galdurik dagola iruditzen ba'yatzue be. Ba-dakizue, geiago eskatzen dauela, olakoetan, Jaunak. Gertu, bada, mutillak, eta bakoitzak bere burua Jaunari erre-oparitzat eskeñi».

Eta Jaunak Don Maximo'ren burua aukeratu.

Eta, gure arteko Maximo jaun ori nor zan? Zeanuri'ko semea! Zera berezi bat artzen dautset ango gauzei ta ango gizonei: «Arratia'ko txekorra, txikerra, baiña gogorra» diño esaera zarrak. Gizon au ez zan baiña txikia, gitxiago gogorra. Beste aldera, gizandi zan, musu gorri, arpegi zabal eta gorputz beteko gizaseme eder.

Erriko sei semek emon eben batera lenengo Mezea. An egoan nagusi, Mateo Muxika, orduko euskaldunen gotzaiña, an zan Arratia'ko erri guztia; an, inguru guztietako lagunak. An, Meza emoille barrien artean Maximo jauna. Ez ziran ez, gerrako egun areik, egun gozoak izan. Ala ta bere, Zornotza'ko eliz-buru zala, oroimen gozoak itxi euskuzan eleiztar guztien biotzean. Andik Gazteiz'ko abadetegira, gerrea amaitu bezin laister. Lan gogorra, pilosopoen barnegidari zortzi urtez, ogeita bederatzi urteko gazte batentzat.

Utsune aundia itxi eban Euskalerrian, andiagoa bete, ordea, Ecuador'en. Guztien buru zanez, danen arazo ta arloen ardura izan bear, ta batera ta bestera ibilli. Ez eban aukera andirik. Bide guztiak lurrezkoak autsez beterik udan, beste ainbeste lokatzez neguan. Jeep'ean udan, neguan ezin ta mandoz ibilli bear izaten eban. Ibaiaz errezago. Baiña aizkoraz sakondutako zugaitzak ziran ontziak, estu ta ariñak, edozeinz irkiñek tirabira eragiten eutsela. Bein, ankaz gora joan zan ibaiaren erdian. Estutu ziran ontzikoak, baiña atera eben alako batean, bere euritakoa eskuetan eukala ondiño. Ez eban, arratiaonek, estu ta larritasunok gora-bera, eskutik galtzerik izan.

Sarri egin bear izaten ebazan bide luzeagoak, Quito ta Guayaquil'era, «mixto» izeneko kamioi baten, zorro ta tramankulukin lagun, ezin ankak erara euki, jarleku estu ereitan, naiko xautu ta minberatuta irixten zan, amabi orduren buruan.

Estu zan lagunekin, estu kanpokoekin, eta estu, batez bere, bere buruakin. Zenbat bider egunezko lanaz leer eginda egon arren, gau-aldi osoak eman zitun elizan itzarri. Alako gau-aldi batean, eskeiñi eutson Jaunari bere burua: «geure arteko lanbide au aurrera eroateko, nekeak, miñak, ukaldiak, baita biziaren galtzea be eskatzen ba'dausta-zu, ona ni emen, Jauna!

Eta Jaunak ontzat artu aren eskaria. Ba-zijoan, oi ebanez, anka kixkur, «mixto» kankar batean Guayaquil'eko urira, ta petroleoz beteriko beste kamio bat agertu yakon aurrez-aurre. Eskui aldera egin eban gurdalako «mixto» orrek, baiña alderako ebillen aurreko kamioitzarra gaiñera etorri, ta sekulako kasketekoa emon. Mixto'ko gizasemeen gaiñera petroleoa, ta bertan txinparta bat sorturik, su-galda andi batek jantzi zitun guztiak.

«Erre-opari» esaten da euskeraz, Jaunari eskeñitako bizia? eta alaxe, erre-erri egiña geratu zan, Jaunari eskenitako euskal mixiolariaren gorputz eder ura. Vinces'en eortzi eben, eta ez da orrelako illetarik sekula ikusi an. Illobi bat dager, arrezkero, betiko loretan, ta lora orrek Gorbea'ko «petularia fragantissima» dirudi.

ESTONBA'TAR MAÑUEL

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tendería, 15 eta 16

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

AGVR

II URTEA
ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - BAGILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ZEZENAK DIRA

Gure Erriko uri aundietan, beste larrietakoetan lez, zergaitik besteak baio gitxiago izan?, batez be udaldian, zenketak izaten dira. Zezenkariak, erbeskoak geienak, argiz jantzita agertzen dira Euskalerriko plazetan. Gero eressa entzuten da eta ba dator pizti asarrea ere adar zorrotzak nori sartuko. Lenengo zezen bizi-biziari txulio batzuk, gero iri batzuk bizkar aurrean piztia motelzeko, gero txulio -geiago, eta azkenez untzetada sakona, ta an daroe tarraz ain izi agertu zan pizti illa. Guzti au ikusak, txaloka edo beraka, deadarrez dalitzala, euretarik asko mosu gorriz, rokor xeatua agin artean dabela eta abela edariz berotuta irakitan...

Gure artean be oitura au ba dogu. arraldeko urietan, baita egoaldekoetan, atez be Iruña'n. Gure naparrak beneako zezen-zaleak doguz.

Beste erri aundi askotan be izaten dira zenketak eta erri txikiak, aundien mailara eldu ezin eta, euren zezenketatxuak giten dabez. Txikiak beti aundien mailara eldu gura!

* * *

Nondik etorri ete jaku oitura au? berton sortua ete da?

Ez da gauza erreza erantzun ziur bat rmotea. Batzuk Iruña'n sortua dala oitura n eta andik beste errietara zabaldua, beste batzuk, ostera, kanpotik etorria dala diñoe.

Gure aurreko abere-zaleak mendietan asa-beiakaz izan ebezan goza-berak ez te dabe zezenketeagaz zer ikusirik? Ortik zezenketara bide luzerik ez dagon ekero, niri errez egiten jat oitura au berton sortua dala siñistea. Euskaldunak uren lana jolasera agertzen zaleak izan ira beti: sagar-dantza, ardao-dantza, mpata-dantza...

Baiña, beste alde batetik auzi au begiratu ezkero, euskaldunak oso abere-maizleak izan gara eta piztiak gogor artzeak min emoten dausku. Akulu-ganak lunegiak erabilten ebezanak zigortu egiten ebezan gure aurretikoak. Esan geinke ba uskaldunaren boitza ez dala zezenketarako egiña.

Gure baserritarrak, orregaitiño, idiproben zaleak izan dira, idiak naikoa gogor artu arren: probalari sendoak, itaureko artegatuak, jokolari trebeak ugari unsi doguz gure proba-lekuetan. Baita isto-probak eta gizon-probak be. Baiña beti eriotzarik barik. Zezenketearen azkena eriotzea da eta auxe, bear ba'da, abere-zalearentzat mingarriena.

* * *

Ba dogu, bai, euskaldunok zezenketarako zaletasun bat, batez be naparrak. Ain abere-zaleak izan eta nondik datorku ai onetarako zaletasuna?

Beste batzuen antzekoak izan bearretatik garalako eta beste jolas egokiagoak egariak ez diralako izan leiteke. Baiña, au kontuan artu, zezenkariak gure artean eso gitxi dira eta zezenketea ez da sekula euskal-jaia izan, ez eta izango be. Espainiarrak «la fiesta nacional» esaten dautsoe, baiña guk ez «Euskal-jaia»; geure jaiak egiteko beste bide batzuk artu doguz: dantzak, abestiak, bertsoak... Eta jolasak egin gura doguzanerako be, beste bide batzuk artu doguz, geure sendotasuna argiro agertzen dabenak: probaketa, arri-jasotzea, aizkolaritza... eta pelota-jokoa.

Eta gure jolasak ez dauke Erriaren opioa izateko arriskurik. Arrisku au geurak ez diran jolasetan geiago agertzen da, esaterako foot-ball'ean edo boxeoan.

Arduratu gaitezan geure jolasai indarra emoten. Ez dago orretarako erbestetik etorriak zertan oinperatu. Onetan be esotze bat bearrezkoa dogu: erbestetik etorten jakuzan gizonak gugaz Erri bat esotzen daben lez, bertokotuten ba'dira beintzat, erbestetik etorten diran jolasak be erriratu daiguzan, geuretu daiguzan.

Zezenak dira
Beltz-beltzak dira
Arrapatzen ba'zaitu
Arrapatzen ba'zaitu
Bertan, bertan,
Ilgo zaitu.

AGVR



Gizonarentzat aberastasuna, indarra, ezneduna, oiñetako ta janaria... ta jolasgaia

XXIII YON

Zazpi urte Bagilla'ren 3'gn deun entzuteaz il zala. Mundu guztiak ain maite izan eban Aita Santu au, Eleizak deuntzat iragarteko gertakizunak egiteko asmoa, VI'gn Paul bere ondorengoak berealako baten agertu eban. Orren ardurea Cairoli prantzizkotar abari emon eutson. Onek ointsu auzia ondo ta aurrera doala esan dau. XXIII Yon, Aita Santu izan aurretik, 27 urtean, Bulgaria, Grezia, Turkia ta Paris'en egona zan, eta bere bizitzaren barri yakiteko, ostera bat egin dau, eta ezagun ez ziran barri asko bildu ditu.

Alde guztietan maite izan eben. Istanbul'en gexoak ikertzen yoaten zanean, bertan ikastola ta gexo etxeetan lan egiten eben alemandar lekaimeai beti auxe esaten eutsen: «Ez astu gero, guztiakaz *onak izan bear zariela, katoliku ta ez diranakaz».*

Bein baten lekaime bat, ezpaz yoan yakon turkarrak eroapena galdu eragiten eutsoela-ta. Ronkalli yaunak erantzun eutson: «Mundu onetan eroapen gitxi ez da iñoz be naikoa. Zuk eroapen ugari bai ugari bear dozu».

Gudaren azken aldean, Turkia Alemania'ren aurka gudan sartu zan. Istanbul'en ikastola ta gexo etxeko ardura eukien lekaime talde batek euren errira, Alemania'ra yoateko erabagia artu eben, Ronkalli ordezkariari ezer esan barik. Euren pardelak gertauta urteteko egozala Aita Santuaren Ordelariak yakin eban eta arrapalada baten yoan eta lekaime guetiei deitu ta itandu eutsen: «Nondik bururatu yatzue zeuen gexo etxe ta ikastolak itxitea zeuen gotzañari ezer esan barik?» — Lekaime-buruak zalantzaz esan eutson: «Alemania'ko Ordelari yaunak agindu dausku». Ronkalli'k erantzun eutsen: «Nok bialdu zinduzen ona Hitler'ek ala Erroma'k?». Lekaimeak erantzun: «Erroma'k». «Orduan Erroma'k gura dau zuok emen gelditzea».

Lekaime-buruak esan eutson, Alemania'ko Ordelariak estu artzen zituela, eta 800 alemandar eroateko bultzi-trena gertu egoala. «Gu emen gelditzen ba'gara, Alemania'n gure etxeak itxi egingo ditue, eta gure sendiak arriskuan egongo dira». Ori larregi be ba-zan.

Euren eta bere eginbearra bertan yarraitzea zalata ordu bi luzeetan ekin ondoren, lekaimeak bertan yarraitzea erabagi eben. Ronkalli'k kapelea artuta aterantza yoyala, barriro biurtu irribarrez ta esan eutsen: «Yakiña, nik ez dot gura iñor indarrez *gelditu daiten, Yaungoikoaren batelean* indarrezko *itxastaririk ez da bear-eta».*

GAMA

GIROAREN SEMEAK

Ezkerra ta eskumea aurrez-aurre ipini ezkero, lerro baten ertzak dira, baiña lerro ori biribiltzen ba'dogu, uztaitu, ertz oiek alkarren ondoan geratzen dira. Ori bera jazoten da gure gizartean be, ezker eta eskumearekin politika arazoetan eta ekintzetan. Ezker ertzekoak eta eskuma ertzekoak jo-muga edo elburu ezbardiñak izango ditue, baiña lortzeko bideak alkarren antzekoak: gogorkerizko bideak. Euren iritxiko ez diraneri espetxeratzea, erbesteratzea edo sarritan erailtzea. Orretariko jazoerak nun-nai eta noiznai izan dira, bai sorkaldean baita sartaldeko laterri edo, lurraldeetan. Batzuetan erri edo enda osoak izan dira zapalduak, erdibituak, birrinduak eta ezereztuak.

Beste batzuetan, gogorzaleen etsaiak banan-banan eraillak izan dira. Agintaritza lortzen dabenean aberekeri aundienak egiten ditue ta, txarrena, tamalena, aberekeri ori zenbat eta aundiagoa izan, mundukoak ariñago aaztu. Nor gogoratzen da orain, euren errikideak izan ezik, Alemani'n nazitarrak judutarreri egin eutsen erri-erailketa itzelakin? Nazitar buru zan batek, judutar jakintsu bateri erantzun eutsona egia zan. Judutar arek, munduak madarikatuko zituala esan eutson, il-zorian egoala. Baiña besteak au erantzun: «Bi edo iruren eriotzak munduan dardarea sortzen dau, baiña iru edo lau milloiren erailketeak, ez, ulergaitza da-ta».

Eta nortzuk gogoratzen dira, noizik beingo albisteren bategaitik izan ezik, jatorriz amerikarrak ziran narru-gorrien erailketeakin? baltzarenagaz? edo Lituani'n errusitarrak egindakoakin? edo oraintsuago, amerikarrak Vietnamen? edo ezkerreko txinarrak Tibet'en? edo eskumatar txinarrak Formosa'n?

Denpora asko ez dala, mundua ikaratu zan Biafra'ko Iboen erailketeagaz —rusoen eta inglesen laguntzeakin— baiña orain ibo gizajoak aaztu doguz. Oraingo egunetan, Bengala'n bertako erri osoa erbesteratu bear izan da, pakistanekoak bultzaturik. Millaka erail ditue ta millaka iltzen dira egunero gosez edo kolera. orregaz. Errusitarrak eta txinarrak, pakistaniarren alde dagoz, eureri komeni jakelako. Munduan, amar eguneko negarra ta zalapartea... gero ezer ez. Batzuetan, ezkerreko laterri nagusiak izaten dira, erailtzaille txikien bultzalari; beste batzuetan eskumatarra. Umeak, emakumeak eta erri osoak goseak il arren, zer? Euren probetxurako olan komeni da ta, kito.

Baiña, geienean, gogor-zale orreik, ertzeko talde orreik, naiz agintaritzan egon naiz aurkako ixilpean ibilli, banakako erailtzak asmatzen ditue ta, arrigarriena. ezkerra ta eskumea sarri alkartzen dira demokratzia ta askatasunaren aurka. Adibideak? Nun nai, zenbat gura. Iltzen dituen gizonak, geienak pakea (egizko pakezale amorratuak edo egizko abertzaleak izanik) nai dabe. Areik, Agintaritzan dagozenean, len esan dogun bezela, espetxea, erbestea edo baztertzea etsaientzat, ilten ez ba'ditue beintzat.

Es dira aldi berekoak, baiña Gandi, Lubumba, Luther King eta Kennedy anaiak bururatzen jakuz, beste batzuen artean. Oneik eta Yon XXIII beste arlo baten edo Kruschev bera beste neurri ta giro baten, gure ustez, munduaren oberako gizonak izan dira. Iritzi ezbardiñeko gizonak, baiña muiñean, bear ba'da, antzeko zerbait izan dabenak: gizartearen bakea, bardintasuna, alkartasuna, edo gitxienaz, errespetua, ta beti aurrerakuntza. Baiña Aita Santu Ona izan ezik, besteak gogorkeriz betiko aldenduak izan ziran. Margo ezbardindunak, baiña orren eragilleak, ertzeko gogor-zaleak.

Guretzat, Kennedy anaiak goragarriak dira bene-benetan. Abertzale zintzoak, gizon jatorrak, gizarte barri bat sortarazteko gogo bizidunak, baiña iparrameriketako eskumar orreintzat oztopo ziran eta... erail! Erailtzailleak? gazte gixajoak beti; baiña atzetik, nortzuk?

Ez dakigu irugarren anai orrek jarraituko duan ala ez, baiña orain arte naiko emon dabe, ta munduari ta gaztediari emon dautsen eredu ona illezkorra da. Zoritxarrez, gazteen artean ertz-iritziak



arrera ona izaten dabe geienean; egitea baiño desegitea errezagoa da-ta. Noizik bein, gogorkeri giroan jaioak diralako; beste batzuetan, gogorzaleen buruak errez manejetan dituztelako. Gero, agintaritzara eldu ondoren, gazteak alde batera lagako dituzte. Ikusi dozue iñoiz gogorzaleen jaurlaritza edo gobernuetan gazterik? Bai zera! Oneik ikastetxeetan eta kaleetan zalapartak eteratzeko edo erabilten dituez, baita erailtzak egiteko be, baiña gobernaun ez dira atsegin, nastea sortuko leukie-ta.

Ba-dogu guk euskaldunok nun ikusi ta nun ikasi. Eredutzat artzeko gizon jatorrak eta zuzenak, guk izan doguz iñun izan ba'dira, baiña orain gazte asko kanpora begira jarri dauskue. Euskal jantziekin apaindurik dabiltzan kuku batzuk, or dagoz Ikastetxe Nagusietan sator-jokoan. Erri-zaletasuna, erri-miña, gure izakera dana txikia, atzeratua edo zapaltzailletzat salatzen dabe... baiña eurak EZ DIRA ERRIZALEAK! Bakoitzak aztertu bei bere ingurua...

ARENAZA'TAR JOSU

«BEAR» ITZA NUN JARRI BEAR DA?

Azkue'k aditz aldagarri izena emon eutsan bear itza erabilteko, era bi ikusten doguz gaurko idazleengan. Bata, oraintsu arte Bidasoa emendiko idazle geinak, (guztiak ez esatearren) alderdi onetako erriaren berbeta moduari jarraituaz aditza ta aditz laguntzaillearen erdian sarturik, modu onetan:

«Arratsaldean Donosti'ra joan bear naiz».

«Egizko azkatasunaren gidaritza ta frenua agintaritzak izan bear du».

«Aitak telebisioa ekarri bear digu».

«Gizartean bizitzak —ondo joango baldin bada— bi gurpil oien gaiñean ibilli bear du».

Baiña azken urteotan, idazle askok Bidasoa andikoen idazkerea berenganaturik, aditz nagusia atzean izten dabe, lenengo tokia bear itzari emonaz:

«Euskal kulturaren etxegintzan zerbait egin nai badegu nork bere arria bearko du jarri».

«Baiña orretarako ispiritu irikia bear da eduki».

«Den lurrik onenak ere bear du apaindu».

«Fedea —munduan den ondasunik baliotsuena— zaindu nai badegu, fede onen sustrai eta oiñarriak bearko ditugu indartu eta azkartu».

«Gure ustez, puntu onetan ere, al delarik, bearko genuke batasuna egin».

«Bear zaitut laga». (Saria irabazitako olerki baten idazpurua). Ikusten dogunez joskera desbardin bi dagoz gaurko idazleengan. Lengoa gitxi dakit. Joskera biok, kontixu, erri berbetan sustraituak izango dira. Baiña nire ustez bietatik bat jatorragoa izango da. Ta zein da jatorragoa argitu egin biar litzake, kontu onekaz zer ikusia daben euskeraren lege jakin batzuk aztertu ondoren.

Ni ez naz iñor kontu au argitzeko, baiña egin daikenarentzat argitasun batzuk agirian jarriko dodaz.

Bear itzagaz egiten diran izen bikoitz ta aditz bikoitzetan, bietan, itz au atzean gelditzen da, erderatik alderantziz:

Esan bearra = La necesidad de decir. (Afán para decir o contar).

Jan bearra = La necesidad de comer. (Comer con mucho apetito).

Esan bear = Tener que decir.

Jan bear = Tener que comer.

Ez dot uste, goiko izen eta aditzak, ola soillik esatean iñork aldatzen dituanik, ezta Bidasoa andikoak be. Ta errelatibo ta konjuntiboetan be danak gure joskerara burua makurtu biar izaten dabe:

«Bala batek ibilli bear duen bidea aldez aurretik dakianik».

«Il bear zutenei eriotza emanaz iseka-bide eta irrigarri asko egiten zitzaien».

«Etziñan ba zu iritzi berdiñekoa orain urte batzuek dirala bertsolaritzaren tonua obetu eta jaso bear zala zeniozunean».

Olakoetan bear itza lenengo ipiñi ezkero iñungo barregarrikeririk andiena izango litzake. Ara goiko esaldi bat aldatuta:

«Bala batek bear duen ibilli bidea aldez aurretik dakianik».

Gure joskera txarto dagoanik iñork ezin esan daike, ezetariko gramatika legerik ez dogulako biurtu edo okertzen. Beste joskerakoak, ostera, biurtzen dabena argi dago

Kontu oneitako maixurik andienak, Altube'k, joskera biurtze au ondo ikusten eban «erderismos» idaztian diñonez:

«Los vascos orientales se valen con frecuencia de un giro especial, muy expresivo, para recalcar aún más el carácter inquirido de los miembros de oración. Consiste en desarticular la flexión perifrásica invirtiendo sus componentes a fin de hacer seguir el nombre verbal al terminativo auxiliar; véase en los siguientes ejemplos (Ta beste batzun artean ondorengo esaldiok ipinten ditu):

«Orratzak baiño ariak luzeago bear du izan».

«Ola lezake gobernamenduak ororen ona billa».

Bidasoa andikoen joskera orren errazoirik ez dau garbi agertzen Altube'k. Esaldian beti da atalen bat inkiridua, besteak baiño garrantzi geiagokoa; ta edozein atal inkiridua danean be modu orretan nabarmendu bearra ba'dauko beti joskera bardiña emon biarko jako, beraz atzekoz aurrera jarte orrek ez dau ezer balio.

Niri neuri joskera ori ezelan be ez jat sartzen. Goiko orrein antzera ondorengo oneik esan ete daitekez? Errazoi bardiña daben arren ezetz esango neuke:

«Biar Donosti'ra nintzake joango».

«Arratsaldean usokumea det jango».

«Datorren igandean «Mendi-Mendian» bear dot zarrentzat dirua batzeko abestu».

Amaitzeko, nik uste dot gure joskera erderatik (gaztelar nai prantzestik) urrunago dagoala Bidasoa andikoen ori baiño; ta orregaitik, jatorragoa ez ete?

KAMIÑAZPI

Euskaltzaindia ta Gaztañaga

Zer esan ete dau zer egin ete dau gure Gaztañaga'k? Gauza astunen bat izan bear, ain «serioski» lan egiten dauan Euskaltzaindiak bere esanai buruz arduresa artzeko. Eta gure egunkariak, bear dan beste euskereari buruz arduratzen ez diranak be, onetzaz arduratzeko. Oben aundiren bat izan bear!

Joan dan orrillaren 27'an arratsaldeko lauretan Euskaltzaindiak bere illeroko batzarra egin eban. Eta batzar orretan arlu ziran erabagien artean auxe da bat: «GOIZ-ARGI» aldizkarira oar bat bialtzea erabaki zen, Gaztañaga jaunak zeaztasun gutirekin bertan idatzi duena zuzentzeko».

Zer ete diño Gaztañaga'k GOIZ ARGI'n?

Bere idazlanaren izen-burua auxe da: Gizon arrigarri baten beaztopa.

Idaz-lan onen laburpena auxe izan leiteke:

—Gizon arrigarriak billatzea baiño zaratatsuak billatzea errazago da.

—Manuel Lekuona ixilla ta apala izan da beti. Baita langillea ta jakintsua be.

—Gizon ain arrigarri au bear dan bestean ez dogu ezagutzen (Emen berak egindako lanak zeintzuk diran diño Gaztañaga'k).

—Eta azkenean Euskaltzain-buru. Uztaillaren 29'an egindako batzarrean kendu dautsoe lendakaritza.

—Aurretik izen bako idaz-lan doillor bat zabaldu zan bere aurka, eta Euskaltzainkideek itzik be ez. Euren artekoen batek egiña ete zan? Aurrez botata zegoan ba Lekuona.

—Askozaz lenagorik, gaiñera. Arantzazu'tik. An eman zioten lenengo ostikoa: «Zaarrak etxera!...» «Ixo zaarrak!...», esanaz.

—Satrustegi jauna sartu zan gidaritzara H eztabaidatzekoan. Lekuona'rentzat lan geiegi zitekealako? Nekeak neke, H'zale sutsua izan ba'litz...

—Lekuona'k gauza asko ditu ondo egiñak. Ontan, ordea uts-egin. Ez da, noski, H'ren etsai, baiña ez eta aldeko sutsuetako be. Eta orrexek galdu.

Laburpenez agertu dogun idaz-lan au irakurri ondoren, itaun au egin bear: Non ete dago Gaztañaga'ren zeaztasunik eza? Ala gauzak diran lez agertzeak min egiten ete dautse batzui? Zergaitik ez, ondo egiña izan ba'zan, argi agertu; eta txarto egiña izan ba'zan, Erriaren aurrean be zuzendu? Jazoerak or dagoz, agertu ta argitu bearrekoak, benetan.

OLAZAR MARTIÑ'EK

BONAPARTE

Gonzalo Carlos Echegaray Jauna, Bizkai'ko aldundiko liburuzaiña lengo baten Iruña'n egon ei-zan Naparroa'ko Agiritegi-artxiboak gorde oi dituzan agiriak begiztatuz batera, nola RIEV, Euskal-ikaspenen Erriarteko aldizkariak da-karren zerrendan agiri onei buruz urteniko iritziak, siñesgarriak ta aintzartzekoak ete diran edo..., ta baiezkoan euskaldunentzat zeinbateraiño itxaro-garriak diran guri ikus-arazoteko be-rebat.

Esku-idazki oneik, zati bat soillik, Be-naparte Errege-gaiak bere liburutegiar eukazanetatik autetsiak ei dira, ta egu-nak dirala, Naparroa'ko ta bardin Gipuz-koa ta Bizkai'ko Aldundiekaitik zorionez ta mugonez atan be eureganatuak.

Geienak, Gonzalo Jaunak diraus-kulez, ez ei dira euskereari dagokiozanak. Ori ta guzti, zeltarrenakaz, eslaboaren izkuntzaz, ungritarrenaz ta bardin samar finlandiatarrenekaz batera gure izkun-euskera maitean idatzitakoak mordotxo bat aurkitu leitekez bertan.

Danok dakigu zelan maite ebazan euskerea ta Euskal-erria prinzipe leiña-gi ta ospetsu onek. Lan mesedegarri benetan itxi euskuna.

Ta Iruña'n geien bat, Bilbo'n ta Donosti'n baiño errezago ta ugariago zalantz-bagarik, idoro geinkez euskal-arloari buruzko esku-idazte oneik.

Orain idazki onein Erakusketarako gertakizunak aurreraturik dabiltzanez, laister samar Donosti'n, Bilbo'n ta Iru-ña'n bere omenez agertuko diran bere-eskuz euskeraz idatziriko liburuxka oneik pozarren ikusi al izango dogu-ta, ta bide batez Errege-gai onen euskal-lei-ta zaletasun bereziak goraldu ta, al-dogun giñoan, txestatu.

ARREGI'TAR JOSU

POZAK ETA KEZKAK

Laboratorioko azterketak.—Michelena jaunak, Antropoloji II asteko apal-ondoan, Bilbaina'n esan ebana egia ba'da... esku onetan dago euskeraren etorkizuna: «Euskerea galdu bear ba'degu, ogei urte lenago galdu arren, zer?». Ederra kontua, izkuntza bategaz jolasean edo «experientza» barriak egiten asi diranen *buru* agertzen danak orrela pentzatzen ba'du. Orreik ete-dira, jakitun batentzat «biologi-arrazoiak?

* * *

Nor jakitunago.—Euskaltzaindiaren Bilbo'ko batzarrean, Jaun batzuk frantzesez iñarduen jo-ta-ke, ipar-aldeko zapaltzaillean izkuntz-jakituria agertu naian. Itz bateri buruzko eztabaidan, Lafitte jaunarengana jo eben argitasun billa, baiña Lafitte'k ez eban ezagutzen frantzesezko itz ori... Jakiña, Lafitte euskalduna da-ta!

* * *

Azkue, euskalduna ete?—Euskaltzaindiko azken batzarrean, Zatarain jaunak txosten bat irakurri du: «Soin ala gorputz» orri buruz; Eibartar Toribio Etxebarria ta Azkue'ren iztegietan SOIÑA agertzen dala esanaz. Txosten au gaiñera, Barandiaran jaunarena zan, eta Naparroa ta Goierri'ko erri batzuetan SOIÑA esaten zala ta dala adierazoten, argi-bide batzuk emoten zituan... Jaun batek sututa, erantzuna: «Iztegi guziak gaizki egiñak daude!». Guk, corpus, corporis orri, amen!, esan bearko? «Nihil est in intelectu quod prius non fuerit in sensu» esan eban norbaitek, baiña «el sentido común es el menos común de los sentidos» beste norbaitek be.

Orain arteko iztegi guztiak txarto... Erderazko itz guztiok sartu dagiguzan eta batasuna eginda dago. Barandiaran, Etxebarria, Azkue... Nortzuk izan ziran edo dira ba?

* * *

Beste bazkal-ondo bat.—Askoren artean Haritschelhar, Lafitte, Iratzeder, ipar-euskaldunak bazkaltzen. Aita Berriatuak, orreri, gitxi gora-bera: «Batasunerako gu zuengana joan gara, zuen euskalkietan alegintzen, ta, zuek zer egiten dozue?». Beste esandako jaun orreik, ez-entzuten bezela, euren jardunean aurrera. Aita Berriatuak, barriro lengoa... erantzun baten billa. Azkenean, Lafitte'k «Guk herriarentzat idazten dugu!». Maikoak, «Ori, ori».

Ara baiña, Garmendia jaunak, asarre: «Ori, ez! Ori, ez! Orain argi dago aldizkari batzuetan korrektore egiten dabenen jokabidea. Orain ondo dakigu zein izango dan lauso arteko «erdi bide» ori: Zertarako Erria? Talde bat da «egi osoaren» jaun ta jabe. Talde edo bulego orretako idazle batek itandu ei-eban bein: «Imperialismoa nola idazten da gipuzkoeraz?». Eta, «euskerantoz»?

* * *

Alkar-izketan. — «Erraizoirik onartzen ete-dozue?» - «Kia, nosotrosok tolon-tolonak bear ditugu konbentzitu iraultza-linguistarako!».

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

◆ ◆

Alkarte bateko buru izateko «boto» bidez igon dan gizonak, kritika baikorra onartzen jakingo dauela uste dogu, naizta gero jaramonik egin ez. Beste era batera izango litzake indarraren bidez lortu izan ba'leu kargu ori, baiña ez da ori Aita Villasante'rena.

Nere gaurko onetan, gauza bat esan nai neuskio: Nere ustez, izango da Arantzatzu'n telebizioren bat, tresna ori ez da gaur burgesen eskubide bakarrata. Olan ba'da, ondo litzake asteazkenean Calvo-Sotelo jaun izkuntzalariak emoten daben itzaldia entzungo ba'leu. Argi ikusiko leukez Gazteltzaindiak bere izkuntzaren alde egiten dituan alegiñak eta, batez be, beste izkuntzetako itzak sartu ez daitezan; gaztelerea modoillotu ez dagien inglandera edo prantzesezko itzekin. Eredu ederra gure Euskaltzaindiarentzat, baiña gorrentzat edo, obeto esateko, itsuentzat idazten ete-dogun nago... edo itsu izan nai dabenentzat.

ARENAZA'K

DEUSTO'KO UNIBERSIDADEKOARI

Aste pare bat ba da, Deusto'ko Unibersidadetik eskutitz bat artu nuala. Eskutitza galdu egin zait ta idazlearen izen-abizenak ere, joan zaizkit burutik. Zer bear zuan nigandik? Galdezka zetorkidan mutillek nere erantzuna bere aldizkarian agertzeko asmoz.

Baiña aldizkari orrek nere lana H'ez josia agertuko zuan, eta obe izango det nere erantzuna AGUR aldizkarira bialtzea. Onela, nik bidali bezela agertuko da nere lana. Galdera bat, au zan:

—Zaharra ala gaztea zera?

Nere erantzuna au da:

—Ni ez naiz ez zar *eta ez* gazte.

Aspaldi ontan euskal-idazleok, «buru-katez» lotuak gabiltza («Konplejoz» beteak gaudela esan nai dau). Zar ala gazte?... Ezkertar ala eskuitar?... Buru-kate oiek ausi egin bear ditugu.

Euskera Batuari buruz darabilzkigun iritziak, buru asko illundu dute. Ta iñork lenbizitik garbi itzegin ba'du, ori nik egin det. Iritziak ez dira jatorrak, gazteak naiz zarrak onartu dituztelako. Argi-bideak arrazoitajutuak ba'dira, oiek dira artu bearrekoak. Eta H'ren kontra jartzeko nik izan dedan arrazoia, garbia ta erreza da:

* * *

EUSKERA, lendik dabil ito-zorian. H *izki ori ez da batasunerako bearrezkoa. Utzi dezagun, ba, danbolin errientzako. Arnaska bidean dijoanari, etzaio zamarik geitu bear. Biotzetik gaixo dagoenari, etzaio ebaiketarik egiten. Arrazoi au ulertzeko, ez da jakintsu izan bear. Zentzurik laburrena duanak, ikus dezake arrazoi onen egia.*

Beraz, nik ez det alegin txikienik egingo «H» ori Euskera Batuan sartzeko. Ezpaidet Euskera il-zorian jarri nai.

* * *

«*H*» *Euskera Baturako* bearrezkoa ez dala, *Mitxelena Koldo'k milla eratara adierazi izan dau. Arantzazu'n auzi au garbitzen asi zanean, lenengo itzak gogoan ditut:*

—Kontu ontan arrazoiak daude alde *ta arrazoiak* kontra - *esan zuan Mitxelenak. Beraz, alde bietan jo ditekela dirudi Euskera Batua sortzeko.*

Villasante Aitari idatzi zion eskutitz batean, au esaten zion, beste egun batean:

—«H»'ren kontu au ez da Azokan erosle ta saltzailleen artean sortzen dan oietakoa: —Nik onenbeste emango dizut. —Ez; emaidazu orrenbeste. —Batasuna «H» rekin edo «H»'rik gabe egin bear da.

Ezta, beraz, alde batera bakarrik egin ditekena.

Ta kontu au, garbien Arantzazu'n ikusi zan. Lafitte jaunak, borobil itzegin zuan ontan:

—Guk zuengana makurtu bear degu «H» auzi ontan; ez, zuek guregana. An, (Bidasoz aruntza, alegia) joan da «H» ta joan da Euskera.

Eta orduan Mitxelena adiskideak au bota zion arrazoi:

—Baiña orain indar berri bat sortu da gazteen artean, eta «bioloji-lejea» da, gazteak ontan nagusi gelditzea.

Onek esan nai du, Mitxelena'ren iritziz, gazteak «H»'ren kontra atera izan balira, Euskera Batua beti egin zitekeala «H»'rik gabe. Ezpedi, beraz, iñor orain etorri, Euskera Baturako «H» bearrezkoa dala esaten.

Eta guk au degu egitekoa: Euskera Batua erreztu, erreztu, erreztu.

* * *

Arantzazu'ra agertu zan gazte-taldearen itxumena, Xarriton apaizak agirian jarri zuan.

Aita Muxika Plazido'k bere jardun-aldian au esana zuan:

*—«*Sei *euskaldunetatik* bostek, *eztu «H»'rik ezagutzen. Beraz, egin zagun* geienen *arira kontu ori-tan: «H» baztarrera utzi».*

Esan bazuan esan zuan... Xarriton apaizak txistua bezela jo zion, galdetuaz:

—«Gipuzkeraz, nola idazten da imperialismoa?».

Au izan zan nere ustez, Arantzazu'n egin zan ateraldi aldrebesena.

Ala ere, gazte-taldeak txaloka bizian artu zituan Xarriton apaizaren itzak.

Erantzuna erreza zuan Aita Plazido'k:

Lenzibi, gipuzkeraz ez degu imperialismo itzik... Gero, au kontuan ar dezagun: Oraiñarte, demokrazia geienak egiten duana ontzat artzea izan da. Ez, gutxienak egiten dutena ontzat ematea.

Baiña zenbaiten jokoa, gaur, gutxienen iritzia ta jokaera lege jartzea da, nunbait.

Imperialismoa, ostera, geienak gutxienen azpian jartzea ez da. Emendik aurrera, auen iritziz, gitxien geienen jokaera zapaltzea demokrazia da. Orra kontu bitxia. Gaurkoz naikoa det. Urrengoan beste erantzun emango ditut.

ETXANIZ'TAR NEMESI

GAZTE

ERRIAREN ITXAROPENA

Igande arratsalde ederra zan. Pagasarri'tik gentozala Zollo'ko erri txikian lotu giñan. Txistu ta danbolin otsa ta gazte aldra bat erri aretako ume batzukin erromerian ebiltzan. Bagenbigun ango jaiak etzirala ta bertan ebillan ezagun gazte bateri jai a, zer dala ta, galdetu geuntzan; igande arratsaldeetan erdi lo dagozan inguruetako errietara joaten zirala eusko-zaletasun ta giroa sortzeko asmoz, esan euskun.

Gero, erritxoa ikusten gengozala, erderaz ebiltzan ume batzukin (erriko maixua eurekin) bat egin gendun. Guk euskeraz egin arren erderaz erantzuten eben eurak. Lurra jota lotu giñan laguna ta biok. Zer dala ta mendiz inguratuta, bakardadean dagoan euskaldun-erritxo onek euskerea galdu? Nok ete dauko errua? Maixuak? Len egon zan abadeak? Nik ez dakit, baiña guztiz zapuztuta ta minduta eldu nintzan arratsalde aretan Bilbo'ra.

Ez nekian zer egin eta lagun bategana joan nintzan jazo yakuna azaltzera. Argi apur bat emon eustan lagunak. Etzala dana illuntasuna gure errian eta bayoyala apurka-apurka itxartuten ikusiazo eustan.

Beriala Zollo'n ikusi genduzan gazte areikaz gogoratu nintzan. Arexek poztuten ninduen apur bat igande gau aretan. Zintzoak eta txalogarriak benetan gazte areik. Or dabiltz asko zer egin ez dakiela erria jasotzeko; beste batzuk ideoloji bat dala ta ez dala barriketan denborea galtzen dagozala. Zollo'n egozan gazteak ba dakie zelan jokatu bear dan; jai-toki, kafe-etxe, dantza-tokietara... joateko astirik ezdaukie, ta besteok darabilguzan lelokeri ta politikeriak itxita il zorian dagoan erria berbiztuten dabiltz euren asti bitarteetan.

Igande-gau aretan alde batetik «pipitta jota» nengoan, baiña itxaropen apur bat ba neukan alako gaztedi jatorra ikustean.

Beste gazteok ezin dogu abestu orain:

«Gu gazteok gaur gabiltza
zer egin jakin gabe».

Beste au baiño:

«Alkartu gaitezen gazteok
Erria itxartzeko».

ATANO

NUNDIK NORAKOA

VI.—URRUTI-MIN

Itsas-errietako arratsalde ederrak! Itsasoa susmurrez, mendia laiño gorriz eta gogoa eder-miñez! Ni, itsaso-zale itsua nintzan umetan eta geroago ere bai. Arrain-ontziak zidarrezko zama ekarrela, kai-turuta, arrain-etxekoa, soiñu sarkorrez eta inguruak bizidun artegaz betetzen zirala. Illunago ta sarkorrago bizia. Etxeko begiratokitik itsasontziak ikusten nebazan sartu-urtenka, beren argi zuri, gorri ta orlegiz. Txistuka ari ziran praktiku-eske. Ta nere barruan zerbait zan jauzika, urrunago eske. Gero ogetik, gaberdian, ontzien zaratea entzuten neban kresala urratzean, euren motorzarren durunda etengabea. Itsas- legorretako beso beroen artean lo. Lauaxeta'k abestutakoa: «Itsas-ertzeko maitemiñak, zenbat itxaro-orduz egiñak!».

Eta azkenean urten nintzan ni ere urrutiko lurretara. Odurarteko giro gozoederra, eleizarakoia, itsatsi yatan barruan eta zerbait andiago egitera bultzatu. Apaiz izateko gogoa agertu neutsen gurasoei ta aiek pozik baietz. Amabi urteko mutilla, batxillerreko bigarrena amaituta ta betikoa egiteko gertu.

Castillo y Elejabeitia'ra orduan. Antxe bai egoan seminario txikia. Ta bertan iru urte eder ta alai igaro nituan.

Lenengo egunetan, jakiña, etxe-miña ta guraso ta neba-arreba kutunen gomuta ezin kendu guztiz eta begiak lauso samar eukiten nebazan. Ala ere, barrua pozkor eta ameskor. Ondo gogoratzen naz zelan gengozan sartubarri guztiak bazter batean erdi kikilduta, ezer egitera ausartu barik. Orduan Lemoa'ko batek, Mimenza'k, ango arri koskor guztiak eta zugatzetako gaztaiñak eskuetaratu ta arrika egin euskun. Gu bildurtuta atzerantza ta bera nagusi, arro ta lasai, gure ezereza ikusiz. Errigoiti'ko Omaetxebarria, Busturi'ko Kalzada ta besteren bat andik ebiltzan, mendi-egalean, txakur bati «alde ortik txakurra», «kanpora ortik» eta abar esanaz.

Nik ordurarte euskeraz auxe baiño ez nekian errian entzunda: bai, agur, ta zer. Anartean uste neban euskerea urrutiko izkuntza izango zala. Esaterako, Aprika'ko izkuntza urrunak eta euskerea neretzat bardintsu. Ta ara nun entzuten neban nere belarriz mizterioz inguratutako berbeta a. Alde ortik, kendu ortik eta txakurra ikasi neutsuzan lenengo egunean, beste gabe. Geroago beste itz asko ta asko ere ikasi ditut, ondo josita. Alaz ere, geien erabilli bear izan dodazanak, gerotxuago ikusiko, oietxek dira: alde ortik, kendu ortik, txakurra! «Lenguaje figurado» ikastetxeetan irakatsi daustelako, jakiña!

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL



JOKEREA

Ikasle askok uste dabe gurasoak euren ikasteak ordaintzen dautsezan ezkero, eurak ez dabela beste bearrik edo zeregiñik, apur bat ikastea baiño. Ta beste denpora geiena pasaten dabe, sarri askotan, egoki ez jaken tokietan, bear ez dan gauza asko entzun eta esaten.

Ba-dagoz beste ikasle asko bere, euren gurasoak ikasteak ordaintzen dautsezan ezkero, eurak txori galdua lez ibilliaz, ikastoleetara joaten ez direnak be, eta oraindiño au baiño lotsagarriago doguna da, sarri askotan, geure ule, bizar ta beste onelako gauza askok emoten dauskun ardurea, ba sarritan izaten da geure ikas-liburuak emoten dauskuena baiño aundiagoa.

Oraingo ikasle gazteak ez dot uste ba onelako jokerarik euki bear dogunik. Onelako jokerak alde batera itzita, beste jokera jatorrago batzuk artu bear doguz. Jokera oneik izan leitekez bai lantegirako bai gaurkotuteko, naiz bardin norbere erriari aurrerantz joaten laguntzeko bere, naiz beste onelako edozein gauza gizarteari obetuten laguntzeko. Badagoz beste ikasle asko, zentzun ardura bako guzti onek alde batera itzita daukezenak bere, ta askok ez dakie ikasi bakarrik egiten, orrez gaiñera bear egiten dabe gogo guztiagaz euren ikasteen ordaiña gurasoen sorbaldatik kentzeko. Oneik dira ba ikasleak, guk gogora ekarri bear doguzenak, eta ez gogoratu bakarrik, orrez gaiñera, euren oinkadak jarraitu bear doguz.

Guk ikasleak, bein sasoi batera eldu ezkero, neke apur bat artu bear geunke, bai ikasiagaz batera bear eginda edo beste gauza batzuetan arduratuaz. Ardura onek, euskaldun garan ezkero, izan bear leitez euskereari indarra emoteko edo euskal-errian dagozan arazoak osotasunera eroateko... Guztiok ikusten dogunez, arazo onek asko ta mota guztietarikoak dira.

RIKE TA MENIKA'TAR JON

GAURKO

Gizonak gaurkotuta bizi dira, gaurko aldian eta gaurko egunean sartuta. Eta gaur zabal dabillen itz bat erabillirik, consumo-gizartean, eralgite-aldian, bizi gara.

Gaurkotasuna edo gaurkokeria gure bizitzan oso-osoan sartzen jaku. Gizona-gizon dan toki guztietan agertzen jaku gaur-zaletasun au. Zaletasun onek gizonari bere azkatasuna kendu egin dautso, gizona ez da arrezkero azke erabagiak artukeran. Eta gizonaren neurriko eskubidez, baita andreak be galdu dau azkatasun au. Orain artean jakintzarik ezagaitik edo bildurragaitik lotuta egon da. Orain eralgikeri onetan sartu da eta bere azkatasuna ito jako, ezin dau zuzena edo ona edo onurakorra bere eretxiz aukeratu. Dana dago eginda: onelan jan, onelan jantzi, onelako lekura joan, au irakurri, au pentzau.

Gaurkokeri au ez da bakarra. Asko dira. Eta gure biziaren jabe egin dira, euren erabagi artuak goitik bera ezarten dauskuez eta nagusi beti urtetan dabe. Onelan jazten ez ba'zara, kursi, baragarri bat zara, au irakurten ez ba'dozu atzeratua zara, onelan pentzaten ez ba'dozu zar-zalea zara, au egiten ba'dozu «chauvinista» zara. Gaurkeriaren aurka doazan itzak eurak be gaurkotu egiten dira.

Gaur-zaletasunak agintzen dau ba. Eta, geiago oindiño, bere gizarte indarra bide dala, nai ta nai ez, bere legeakaz azpiratzen gaitu. Lege orreik onartzen ez ba'doguz gizarteak jaurti egiten gaitu, bekoki illunez begiratzen gaitu; gizarteak ipiñi dauskuzan mugen gaiñetik igaro garala ta, bere barrutik atera egiten gaitu.

Gaur-zaletasun legeen aurkakoen artean egon gura ez ba'dogu, gaur-zaletasunak berak bide bi erakusten dauskuz: Lenengoa geure erriko kirol-taldearen indartzailleak izan eta berari doan lekura lagundu; bigarrena sozialismo-zaleen idaztiak irakurri eta sarri aitatu, onein antzekoak ez diranak ameslariak dirala esanez. Bear ba'da ezer ez dogu adituko, baiña ez dau ardura. Gaur-zaletasunaren legepean egongo gara eta ontzat artuko gaitue.

AZKARRETAZABAL'TAR JON

NESKATIL BATEN BURU-AUSTEAK

Gorasoak, seme-alabak azteko, makiña bat izerdi atera bearrean izaten dira. Aur jaio berriak ain maite izanik, urteak igarotzean poxpolin-lirain ta zoragarriak dira ta, aita-amak beren pozatsegin aundia izaten due, iñoren aurrean alaitasuna agertuaz. Umeak txikiak diran artean, etxean gauzak ongi dijoaz; beren aldian ikastoletan sartu, ikaskizunak alik eta azkarren egiteko, ta gaiñontzeko poztasunak lortu.

Aitak eta amak, zenbat lan semeak alik eta ondoen azten! Ainbeste neke ondoren bakatu ditu ikaskizunak. Gero, zer egin? Guzien jokaera noski, lana billatu, etxera txanponak ekartzeko ta ordurarte aita-amak beragaitik egindako lanak biguntzeko.

Zaillak dira gaur egunean karrerak bukatzen. Len, aberatzen semeak joaten ziran ikastol aundietara, unibersidade dalako oietara. Gaur ordea, txiroen semeak ere joaten dira, eunetik larogei bai beintzat. Aitak ez ba'du bere gaztealdian ezer ikasi, bere semea aurrera ateratzeko alegiñak egingo ditu. Esango ba'lu bezela: «Nik ez nun ikasteko almenik izan, baiña nere semeak ikasiko due, ea orrela, biar edo etzi, nik baiño bizimodu obea izaten duten.

Nere gaurko idazlan ontan, izen burutzat artu detan bezela: «Neskatil baten buru-austeak» orren berri eman nai nizuket:

Neskatil ponpoxa au oso polit eta liraiña da. Amasei urte bete zitula ofiziñako karrera bukatua. Gajoak, uste zuan, bereala lanean asiko zala. Nundik eta nola arkitu bera? Errekomendazioz edo-ta izparringietako eskarieri idatziz erantzunaz? Asi zan anuntzio guzieri erantzuten. Erdiak ezta jaramonik ere, batzuk bai. Oietakoak, nun eta nolako lana dan adieraziaz eta bertara joateko examiñatzera. Or dijoa gure gaztea, apain-apain, arpegiko kolore ta guzi, nagusiaren aurrera. Uste zuan gajoak, bera bakarrik izango zala deitua. Bai zera! an zeuden beste dozenakak bera bezela zai!

Artu examiñak eta ortako zegonak esaten dio ondoren: «Urrutizkiñez edo eskutitzez erantzungo dizut». Berealan joan zan neskatilla etxera ta aita-amari esan: «Uste det lanean aurki asiko naizela». Joan egunak, baita asteak ere. Illak ere, zer esanik ez. Ez deirik urrutizkiñez, ezta eskutitzik ere. Olantze urtea joan zitzaion. Bitartean, bateko onelako Banko'ko eskaria, besteko Kaja-Aorros'ekoa, guztitara txintxo azalduaz. Ezin gajoak ezer lortu! Ori gertatzen zaiote gaurko millaka gazteri. Karrerak eman ta gero lanik arkitu eziñik. Aita ta ama guziak beren semeak doktoratu naian dabiltz, ta guzientzako ez dago lanik emen. Opiziorik ederrena ori bai da; luma artzea eskuan, exeri, zirri-borroak egin ta gero, jornala erraz atera.

Antziñan, berealan, urteak betetzen zituztenean semeak, ofizioren bat artzen zuten. Nik galdetuko nuke: Txarra al da ofizio on bat? Guziak ofiziñarako ikastea obe al da? Ofiziñetan ez dago guzientzat tokirik; sartzeko oso argia izan bear du, ta ez exkaxa.

Gure neskatilla, batean, ortako eskutitzez deitu zioten etxe batera joan zan. Oso ongi artu zuten. Injenieroak ziran. Etxe bateko gelan zuten ofiziña. Jo zun atea ta berealan irten zan bat. Galdetu zion: «Zer nai dezu?». —Gazteak erantzun: «Ni, zuek idatzi dezuten anunzioko neskatilla naiz»—. Injenieroak berealan: «Sartu barrura ta exeri or», jakiña, neskatilla alako ikaraz zegon, ta besteak galdetu zion: «Or orman dagon margozki-irudi ori ontzat artzen al dezu? Zer derizkiozu?».

Neskatilak, begiratu ta begiratu margoari. Ezin ordea zer esan nai zuan ulertu. Surrealismozko margozkia bai zan ta alako zirri-borroa besterik ez zuan ikusten. Ordun neskatillak: «Neretzat margo orrek ez du ezer esaten. Ori zirri-borroa besterik ez da-ta». Bat-batean, besteak erre-belarra eskeiñi zion. Neskak ez ordea artu, erantzunaz: «Eskerrikasko, ez det erretzen». Ta alkar izketa onek jarraitu zun:

—Bai al dezu senar-gairik?, nagusiak galdetu zion.
—Ez jauna, ez det, oraindik gaztea naiz.
—Zer jakinduri daukazu?
—Onelako ta alako.
—Esan zer diran.
—Ba, zazpi urteko ikaskizunak. Laboral tituloa. Prantzes itzez ta idazten ezin obeto. Ingeles lau urteko ikaskizunak akademian eta abar eta abar.

Joan da ondoren etxera. Itxoin urrutizkiñari begira. Ez ordea deirik. Bi urte luze igaro zitzaizkion gajoari. Jo batera ta bestera, ta alako batean deitu zioten leku batetik. Bidean, bertara zijoala, bere buruan: «Oraingoan eskeintzen ditan jornala ontzat artuko det, Baita lau milla pezeta illeko ematen ba dirate ere». Alako denda aundi bat zan. Traste anitz ta ugari bazterretan. Goian ofiziña antzeko gelatxoa. Beste iru zeuden lanean. Egin zioten azterketa, dalako takigrafi, mekanografi, kontabilidade, itz-egin pitz eta pitz, ta nagusia oso konten geratu zan: «Emen illean lau milla peseta ordainduko dizut. Nai ba'dezu, etorri astelean».


Baietz erantzun zion berealan neskatillak, eta pozez gaiñera. An joan zan etxera aita-amari kontatzera, lana billatu zuala. Orra or esan guzia: Beste leku askotan, naizta eundik laugarren edo seigarren gelditu examiñetan, eziña izan zun lanean astea. Arrezkeroz, oso konten dabil, leku artatik beste batera irtenik, ta emendik bestera. Gaur amar milla pezeta irabazten ditu.

Aita ta ama oso konten. Etxean bi jornal orain. Senarrak, emazteari esaten dio: «Aizu, etxea apaindu bear degu; nebera erosi bear da, kalefazioa, dalako bero-beltza, enpapelatu ere bai, ta lurrean parketa jarriko degu». Zearo arrotu dira gurasoak. «Belbilla ere erosi bear genduke, igandetan batera ta bestera ebiltzeko...»

Bukatu detan. Estuasun ondoren alaitasuna! Bai kirtenkeri ugari ere!

E. OZKIN

Ama gazte



Ama-barri izan aurretik zaindu zeure burua

— nasai bizi
— janari garbiak
— ara ta ona ibilli apur bat
— aurr barria noiz etorriko begira pozik izan biotza.

Ama-barri izanda gero zaindu zeure aurra

— egun bi edo iru barru «ictericia» gaixoa agertu leitekio. Ez ikaratu.

— Aurrak kilo bi ta erdi izan bear dauz gitxienez ondo izateko.

— lenengo egunetan 200 edo 300 gramo galtzen dauz.

— zabeleko-zilla osatuarte aurrari ezin leikio gorputza garbitxu.

— 37 maillako ur epelaz garbitu.

Ama-barri izanda gero zaindu zeure gogoa

Aurra egitean
zure gorputza aldatu egin da piz-[kat.
Gorputz-aldaketa onek gogoa eragiten dau.
Gogo orrek
gaur negar-gura..., biar pozik..., etsi triste.

Zergaitik?...

. . . . . .

Ama barri orrek
espillura begiratu, eta...
«ene, zelako arpegi zatarra!».
Aurrak negar apur bat egiten dabela-ta
«ene, aurra gaixorik dago!».

Senarra etxera etorritakoan ixilik da-[goalako-edo...
«ene, nigaz asarre da,
ez daust jaramonik egin gura,
ez nau maite...!».

Ez orrelakorik, ama gazte!!
Gorputz aldaketa orrek
gogoa eragin dautsu
Ez da besterik. Ez estutu.

Egizu
soiñeko polit-eder barri bat.
Zoaz lagunakana.
Ekarri lagunak

Gogorik ez?
Egizu onexegaitik.

Egizu irribarre senarrari.

Eta zuk, senar orrek,
oraintxe inoizko biozti ta maitekor.
Noizko laztan eta berba bigunak?

MITXELETEA

Ibar eder bateko landa loratsu batean, mitxeleta polit bat dabil, lorarik lora, egazkada labur ezbakoak egiñaz.

Sei-zazpi urte inguruko mutil bizkor batek ikusi dau eta, ain ikusgarria iruditu yakolako-edo, a asten da, batetik bestera, alegiñetan, mamorrua eskuratu guraz.

Baiña mutikoa mitxeletagana urreratzen da bakotxean, arek iges egiten dautso, lora batetik beste batera alde egiñaz.

Etxeko leiotik ama begira dauka. Eta semetxoaren guraria ikusirik, gozaro-gozaro olantxe diraute «Ene semetxoa: itxiozu baketan mitxeleta polit orri Arin-arinka egaz ikusten dozun bitartean, zure bi gitxoak pozez beteko dira. Baiña atzamar-artean i egiten ba'dozu, edertasun guztiak galduko ditu

Mutikoa, apal-apalik, amatxoren esanera mu kurtzen da. Baiña begira-begira dagokio mitxe teari: bai polita dala gero! aboaren inguruan dauk ezten antzeko bat atarata, lili zuri baten barrui janari gozoa miazketan diardu, liliari berari ezeta ko urraturik egiteke gero!

Mutikoa arrituta dago, zoragarrizko mamorroa begiak josita... Baiña mitxeletea ezin geldi egi luzaroan leku berean: egoak jasoaz, an doa gorie zear sabu-sabuka...

Onetan, burutasun biurri batek joten dau mutikoaren biotza. Amatxoren esana zearo aiztuta, mamorroa beretzakotu naia sortu yako barriro mutikoari beragandik iñoiz be aldendu ez daiten.

Zain dago... Ta mitxeletea lili baten ganean jarririk, aren barruko guna gozoa edaten asi danean an yoako, ixil-ixilik... Eta bere eskutxoaz, trapondo estutzen dau. Gero, eskutxoa zabaldu ta... eze ikusten dau mutiko gizajoak? Autsa, auts dizdikorra baiño ez!

A ikusiaz, larritu egiten da mutikoa. Negarmalkoz betetan yakoz begitxoak eta, bere atsekabandia ito guraz, an doa amatxoren besoetara.

Amak, semetxoa negarrez eta egindako gaiztakeriaz damututa ikustean, eztautso asarrerik egiten. Maitekiro laztanduaz, olan dirautso: «Orretan ibilten da gizona be, zeu mitxeletearen atzetik ibili zarean legez, entzute andia eta atsegiña jaritzen guraz. Eta bere ames ori eskuratzeko erea eldute yakonean, orduantxe ikusten dau lurreko gauzarik auts dizdikorra, zuk esku-artean il dozun mitxeleta orren antzera».

ALBIZU'TAR KEPA

ALKAR-IZKETAN IV

BITASUNA

—Gaur, Manu, negargarri ezpalitzok barregarri dan gaya bururatu yatak, alkar-izketa onetarako.

—Len be naiko negargarririk ikusten yoagu, baiña batekoagaitik euk guroana eik.

—Ba arrituta gelditukoaz baiña, gaurko alkar-izketako gaya «bitasuna» izango dok.

—Zer dinok? I be itz barriak asmatzen asi az?

—Enok itz-barri zalea be baiña, gauza barriei izen barria ipiñi bear.

—Ezaik esango bok, «bitasun» orrek zer esan gura daben ezin yoat igarrita.

—Neu be lenengotan bitasun ordez «bikeria» deituteko egon nok baiña «bitasuna» aukeratu yoat, biguntxoagoa dok-eta. Lengoan euskeraren batasuna dala-ta yardun aldia izan zoan, eta oin batasunetik sortu dan ume yayoparria dan «bitasuna» agertu dok. Ointxe esango daustat zer dan. Erdeldunak ta euskeldunak batera aitzeko euskerea erabilli. Ori zelan izan leitekek?: Erdiak erderaz ta beste erdiak euskerazkoak erabillita.

—Ori irakurle guztiak agoa zabalik izteko obea dok. Eta gaiñera eztok gauza barria be. Oin urte asko dala izlari ospetsu batek langilleai auxe esan yautsen «Pueblo soberanoaren deretxoak defendidu bear doguz». Eta entzuten yegoan galleguak auxe esan yoan: «A ese siquiera se le entiende algo». Etxekiat euskeldunek zer esango ete eben.

—Orren ondoan «domistikun» bat baiño eztok oin esango yoadan au. Eta antxiña baserritarrak erabilten yoen «aterki» andirik badaukok, zabalduik, datorren txingor zaparradeari eutsiteko naikoa ez dok izango ta. Euskera garbia gura ba'dok entzun ondo:

Estremoetatik, oskurantismoa, ideologia, sexoa, justifikatzen, konzeptzioa, premisa, perbertituta, metafora, naturaleza, sexualtasuna, kultibatu, experientzia ta pedanteria. *Oneik euskel-aldizkari bateko idaz-lan batetik. Orrez gaiñera or yabizek «moldako letretan»*, koordinatu, serioski, erresponsabilidadea, errentabilidadea, programazioa, konformismo, sikolokiju sinplifikatu, teknika modernoa, kritika kanala, okultismo misteriosos, asolutamente konkreto, abstrakto, errealismoa ta errealitatea ta abar...

—Tirok, tirok, naikoa dok. Nire lagun batek ori «la akabision del euskera» *dala esango lleukek.*

—Ori ez dok txarrena. Tamalgarria dok «kultura» itza espanetatik dingilizka darabillenak «zer» ori ontzat emotea.

—Erderaz idazten dabenak, orrenbeste euskerazko itz erdereagaz nastuko ballebezak zer esango ete lleukiek?

—Esan bearrik etxagok, edozeiñek igarri leikek eta.

—Uste yoat gaurko naikoa izango doala, «zaparrada» orreik buruko miña be egin yaustek eta.

—Olan ba'dok, atseden apur bat eta eroapen ugari bearkozak bai, ta agur urrengorarte.

—Agur, ondo ibilli ta... ekin... Euskera *maitearen alde. Ostean gureak egin yok.*

URIGOITIA

EUSKALDUN BATERI

Adizkide ona, pekatu duna;
Ezazu galdu gaurko eguna!
Ortik zabiz bildurrez beterik;
Eskuak lotuta erria ikusirik.

Errezena da, zuk egin dozuna.
Pauso bat ez emon: Gizon illuna.
Ondo bizitzeko, begiak itxi...
Euskaltasuna saldu diruagaitik.

Besteak jarrai deitezela billaketan!
Zu beti patxadan, urrezko etxean...
Danok ikusten dabe euskaldunen arriskoa
Baña iñork ez du konturatzen zure pekatua.

Gizon motela, euskaldun guzurtia...
Nun dozu alaia, nun besteentzat errukia?
Aberatsa, diruduna, sasi intelektuala...
Barrundik ezer: makala ta motela.

Kezka barik, oso ondo bizi zara...
Bizitz oi, izango ote da iraunkorra?
Olan izango balitz: betiko agur!
Baña olan ez ba'da: kontuz!

Biotz usteldua, euskaldun lasaia.
Nora bialtzen dozu erriko anaia?
Zuretzat erria ez da ezer...
Euskerearen illa dator laister.

Baña erri oi, egunen batean biztuten ba'da;
Euskaldun gizona: Galdua zara!
Zure erriak; bulartsu ta indartsu,
Erruki barik sapuztuko zaitu.

EZKAURIATZA'TAR XABIER

LENGO JAUNARTZEA

Len eta orain.

Udabarri guztiak ba-dabe umeentzat ain pozgarria izaten dan igande bat. Eurie lenengo Jaunartze eguna. Guk olakorik bat be buruan ez dogula, igande baten etxetik urtetean, kaleeri alaitasuna damotsen aingeru zuriakaz tope egiten dogu.

Tira (geure kolkorako esaten dogu), umeen lenengo Jaunartzea gaur.

Gutzat be gaurko umeentzat lez zan egun au, irrikiz bere zain egoten giñan. Ala be, alde ederra dago ordukoetatik gaurkoetara!

Gaur, eztai andi batzuk lez edozein etxetan dira umeen lenengo Jaunartzeak. Gure auzoan ikusi dodan olako otoruntz batek bultz egin daust au idaztera. Berrogetak lagun erdaldunak geienak, mezarik entzuten ez dabenak, ume baten lenengo Jaunartzedala ta jatetxe baten, olakoetan oi dan zarata ta abesti artean bazkari ederra egiten.

Ez noa mundutarkeri au gaiztetsiten astera. Gaur dana da olan eta. Ez, nire asmolengoetatik gaurkoetara dagoan aldea irakurle gazteari begien aurrean ipintea da. Orretarako orain berrogetamar urte neure Jaunartzea zelan izan zan esatea onena.

Ia zazpi urtegaz lekaimeen ikastolan genbiltzala, lenengo aldiz Jaunartzea egin neban. Oneri Jaunartze Txikia esaten geuntsan eta ez zan aintzat artzen. Ez aparteko jantzirik, ez ezer ez zan izaten. Andik urtebetera, oraindik lekaimeakaz genbiltzala egin genduan Jaunartze Nagusia. Ondarru'n urtean bitan izaten zan Jaunartze Nagusi eguna: Gabon egunean eta urrengo udabarrian, orduan esaten genduan lez San Jose Patroziñoi egunean. Geienak Gabon egunean egiten genduan; San Jose Patroziñoi egunean, obeto bizi ziran pamilietako umeak eta zerbait ba-zirala uste ebenetakoak.

Kristau Ikasbidea ondo ikasita eukiten genduan. Jakiña orduan be umeentzat Jaunartze eguneko garrantzitsuenetarikoa jantziak ziran, naita, batez be gerora neskatoen artera sartu dan apainkeririk ez izan. Neu be arro joan nintzan neure oiñetako baltz dirdaitsu, eskularru zuri, liburu zuri ta besotik dindilizkako lazuagaz. Ala be, nire jantziak ba-dauko bere kondairatxoa. Nire osaba bat, Ondarru'n astilleroan lan egiten ebana, bere aloger kaxkarragaz pamiliko bear-izanari arpegirik ezin emondu. Las Arenas'era bizitera joan zan (Areneta esaten etxean ikasi genduan) «Euskalduna» astilleroan lan egiteko. Ta an ontziak margozten-da lanean erabilten eban jaka zarrakaz gure ama jostunak artu ta barrukoz kanpora bira emonaz ta zati zarrak kenduaz dotore ipiñi eustan. Bai orixe! Tamala argazkirik ezin atara izan genduan-da. Ondua Ondarru'n ez egoan argazkilaririk eta ezta argazki tresna txikienik eukanik be.

Jaunartu ta elizkizuna amaitzean sakristian kokotea ta zerbait edari gozo emoten euskuela uste dot. (Kokoteak Markiña'n egiten diran janari gozoak dira, erroskillagai bardiñekoak, baiña zapalak, orduan geienez be txakur andi bi balioko ebenak gaur ez dakit, iru bat laurleko gitxi gora-bera). Gero etxeratzean beste kokote bat arta senideen eta gurasoen adiskide andi ziranen etxeetara ta an geure kokotea aoneroaten geuntsan ta kraskadatxoren bat egingo eutsen, asko ez kentzeko kontu izanaz. Txakur andi biko kokote bat zortzi edo amar pamilirako. Alde ederra gaur eroaten diran tarten ondoan!

Senide ta adiskideen etxeetara joatean euretan emongo euskun dirua buruan izaten genduan. Zeiñek diru geiago batu izaten zan Jaunartzea egiten eben umeen ilusioa. Errial bi iñok emoten ba'euskun asko izaten zan; geienak orrenbestera ez ziran altzen. Guztira irulau laurleko artzen genduzan; jakiña amarentzat.

Etxeetarako bira eginda geure etxeratzean jantziak kendu ta betikoak jantzirik kalera. Eta gero eguerdian eguneroko bazkaria: indiabak-edo.

Baiña Gabon egunean Jaunartzea egiten genduanok zori ona genduan onetan. Bazkari ederra egingo ez ba'genduean be afaria bai beintzat, ez gure Jaunartzegaitik Jesus'en jaiotzari egokiona baiño. Besteak, San Jose Patroziñoi egunean egiten ebenak ez euken gure zoririk jataldi on bat egiteko.

Bai beste milla gauzatan lez kontu onetan be ederto aldatu dira oiturak. Jakiña txarto bizi garala besterik ez dogu entzungo, ta milla bider obeto bizi bagiña ba bardin.

ETXABURU'TAR JOSE MARI

KIROLAK

URKITZA TXAPELDUN GAZTEA

Aspalditik ta igaztik onuntza batez be, entzute andia lortu dau Urkitza'tar Bitor pelotariak, «Zaratamo'ko Ezkerra» esaten dautsen pelotari trebeak, jokatu dituan leiaketa ta txapelketa guztietan garapien andia lortu daulako. Asken aldian, arretariko txapelketa bi irabazi ditu: Bizkai'koa lenengo ta orokorra azkenez, banakako edo eskurik-eskuzko bakar jokoan. Ori dala-ta, ta ospe aundia daukanez batez be gaztedi pelotazalearen barruan, egoki eretxi jaku beretzaz zerbait gure aldizkari ontarako idaztea. Eta orretarako, zer egokiagorik bere basetxe zabalera zuzendutea baiño, berakin itz egiteko? ta orixe egin dogu.

Bertara eldu ta atea joaz batera, neskatil muso-gorri, eder ta lirain batek igiri euskun atea: «Urkitza pelotaria emen bizi dala esan dauskue, etxean ete-dago?». Eta itanduaz batera basetxeko areto zabalean aurkeztu zan bera neskatilearen deira. Agurtu ta nor garen azaldu ta AGUR erakutsiaz asi giñan itaunak egiñaz izketalditxoan:

—Zeure izena ta urteak, Urkitza?

—Izena Bittor, eta urteak emeretzi ditut.

—Neskatilla lirain au, emaztegaia ete?

—Ez, neure arreba Irene da.

—Ederto, urte askotarako izango aalzaree. Noiztik ona zabiltz pelotan?

—Ia oiñez ikasi nebanetik, geiago barik.

—Beste lanik edo ikaskuntzaren bat?

—Bai, maestria jakintza amaitu barria dot.

—Noiztik asi ziñan arauzko txapelketak jokatuten?

—Gaztetxutatik, baiña mail edo garrantzirik andienekoak aurten jokatu ditut; lenengo Bizkai'ko txapelketea, txapeldun geratu nintzan bana-banakan, eta urren, orain amaitu barri izan dogun Españi'ko txapelketan, Bizkai'ko ordezkari lez, ta or be txapeldun izan naz bakar-jakoan, eta nire lagunak, Bizkai'koak oneik be, biñakakoan bigarren geratu ziran.

—Azken aldiko txapelketak, geienak, bana-banakan jokatu dozuz eta eurotan txapeldun urten zara, ta orrek, bakar-jokoan obeto zabiltzala edo naiago dozula biñakakoa baiño, esan ete nai dau?

—Era bietara atsegin dot, pelotazale purrukatua naz-ta, baiña, balitzake banabanakoa obeto jatortala, neure jokoeragaitik bear ba'da.

—Orren pelota-zalea izanik, ta aurrerantzean be pelotan jokatuten jarraitzeko asmoa izango dozula ta, beraz, ogibide lez, diru-irabazten egiteko gogorik ba ete-dozu?

—Beste eragozpenik ez ba'dot, bai. Naita orretarako asko ikasi bearrean izan.

—Jakitun nengoan Zornotza'ko eskupelota Ikastolan, Akarregi irakasle dala, ibilli ziñala, orain be jarraitzen dozu?


—Bai, ikasketa batzuk egin nebazan, baiña jakintzarako egin bear izan nebazan ikastaroak ez eusten astirik itxiten, eta itxi egin bear izan neban.

—Nik, egia esateko, ez zaitut jokatzen ikusi, ta ez dakit zein dan zure joerarik egokiena, esango dauskuzu zeuk?

—Jokoan era askotara jokatu bear izaten da; pelotea zelan datorren, alan. Baiña bear ba'da ondoen jatorten jokerea bolea edo buru-gaiña izan lei.

—Entzun dodanez pelotarien artean euskal-giro andia dago, atsegin dozu ori?

—Pelotariak, geien batean, pozik gara euskaldun izateaz eta geure-geurea dan joko garbi onegaz.



—Amaituteko, irakurten dozu euskerazko ezer?

—Zeuk ikusten dozunez, euskeraz badakit, baiña egia esan, ez dakit euskeraz irakurten, ori bai, gura neuke ikasi ta alegindu bear naz ikasten.


—Ba, nai dabenak ikasten dau-ta, lendik euskerea dakianak ainbat eta errazago; beraz, AGUR bialduko dautzut orretarako, euskera txukuna irakurriaz bertan, ikasi dagizun. Ta, ea urte asko baiño len, oraingo onetan Lajos napar kementsua goraldu daben lez, gure aldizkarian bizkaitar txapeldun bat goralduten dogun, eta ori, Urkitza txapelduna izango al-da. Agur ba, Bittor, eta zorionak AGUR'en bitartez, lortu dozuzan txapelokaitik.

ALTUNA'TAR JOSU

ITZ-EUNDUAK

(XI)

Etxebarria'tar Juan Anjel



AGERBIDEA


ZEARRETARA.—A: Bizia kendu (a. a.).—B: Lokarri.—D: Euzko abizena.—E: Jogaillu; Konsonante.—G: Uritarra (a. a.); Su-miia.—I: Arrain-azala; Oldozgai.—J: Jai egin; Ezeukia (a. a.).—K: Zenbakia; Adi-bide.—L: Konsonante; Dan-dana.—M: Euzko abizena.—N: Sarlekua.—O: Ukapena.

GOITIK BERA.—1: Izkia (a. a.).—2: Narru.—3: Lekuan.—4: Bukatu; Bokal.—5: Saria emon; Lantegia.—6: Logale; Tinta egiteko ura.—7: Jauzi egin; Gogo andiz.—8: Almena; Euzko abizena.—9: Bokal; Abizena.—10: Alperrak.—11: Zeruko arri (a. a.)-12: Atzizkia (a. a.).

X'aren agerpenak:

Zearretara = Zu. — Pago. — Zameza. — Logale; E. — Lotara; Aza. — Pagadi; Sutze. - anulI; Turuta. — Ara; Logela. — A; Zabala. — Gosete. — itrE. — Oa.

Goitik bera = Pa. — Lana. — Logura. — Zotala; G. — Pagadi; Zoi. — Zamari; Lasto. — Ugela; Tobera. — ozE; Sugate. — A; Aurele. — Eztula. — Azta. — Ea.



ORRENBESTE INGORRIREN OTSEIN, EZ!

Amaika bidar izango ziñan ordainagiri baten ardurapean, etxean edo, okerrago, iñorenean ordainketea egin bearraren zain! Zeregin orretarako zeure ordezko bat izatea lasaibidea litzaikezu. Orrela, ausiabarrak, leiatilla aurretako zutik egoteak eta diruak oker zenbatzearen arriskuak saiestu daikezuz.

ORDAINKETEN LEKURATZE ori duan erabilliko dozu, gurean kontuidegi bat eukitzeaz beste barik. Bilbao-Banku onek, zure argi-indar, ur, laspel, urrutizkin ta abarren agiriak zure ordez ordaintzeko ardurea artuko dau beregain, baita biltoki, alkarte naiz zerga ta su edo bizi-aroenak bere.

Ta beti, zenbat, noiz eta nori ordaindu jakonaren ezaugarriak izango dozuz.

BANCO DE BILBAO BB

Onek emakumeen eskubideak onartzen ditu

Aprobado por el Banco de España con el núm. 7924.

IDAZTI BARRIAK

UMEEN DEIA

Egilleak: Euskalerriko umeak.

Antolatzaillea: Ismael Torres c. m. f.

Batzaillea: Felipe Murueta'koa.

Argitaldaria: Librearia «Claret». San Francisco, 16. - Bilbao.

Irarlea: Francisco Unzurrunzaga.

* * *

Geroko erria gaurko umeak doguz. Orregaitik, liburu onek umeen ardurea dakarsku. Umeen ardurea eurak idazle doguzalako eta irakurle be eurak izan leitekezalako.

* * *

Arkibidean, liburu eder onek sei zati daukazala ikusten dogu: Aita Murueta'ren bizitzea, Aita Murueta'k euskerearen alde egin ebazan lanen barria, UMEEN DEIA aldizkariaren goraberak, U. D.'an neska mutiko idazleen idazkaiak, Naparro'ko Diputazionaren euskerea zabaltzeko lanak eta arkibideak.

Gero A. Murueta'ren argazki bi, bata Buenos Aires'en (1930) gazte zala, bestea Iruña'n (1966) zartzarokoa.

Lenengo zatian euskeraz eta erderaz mintzatzen da, bigarrena, zati on bat, erderaz dator, irugarrena be antzera. Baiña zatirik onena laugarrena da: lenengo Araba'ko umeen eskutitzak datoz, Aramaio'tik... Gero Bizkai'koak erri askotatik etorriak. Gero Gipuzkoa'koak, erri askotatik, baita. Gero Naparroa'tik asko eta asko. Ta, azkenez, Benaparra-Lapurdi-Zuberoa'tik artuak zailla baten. Baiña, Euskalerritik kanpora be euskaldun asko dagozan ezkero, beste laterri oneixetatik etorriak be ba dakarz: Argentina, Canada, Chile, Venezuela, Inglaterra.

* * *

Gure ikastoletarako liburu au oso onurakorra izango da.

Ikastolan lenengo norberaren erriko izkuntza ikasi bear dogu. Eta emen daukaguz erriko izkuntzan, garbi-garbi, umeak idatzitako idaztiak. Gero euskalkia: eta emen daukaguz Bizkai guztiko, eta Errialde bakotxak bereko, idaztiak. Eta, azkenez, beste euskalkiak ikasi gura doguzanean, ume oneike irakasle izan geinkez.

Au adierazteko idaztien zati batzuk:

MUNGIA'tik: «Eskeko asko ibilten dira negu zein udan batik bestera etxerik etxe. Eskean ibiltea samiña da. Neguan otzagaz ibilli eziñik, eta udan beroagaz».

Unibaso'tar Rosa Mari

ONDARRU'tik: «Nere amak esaten dau orain dala ogei ta zortziren bat urte udako arratsalde eder baten sare konpontzan ari zirala nere amama giseko bat eta nere ama».

Aristondo'tar Patxi, 10 urte

AMEZKETA'tik: «Amezketa'rra naiz ni. Erri au mendiaren azpian dago. Geienak artzayak dira; ni ere ala izan nintzan. Baserritarrak ere badaude... Tolosa'ko konbentuan nago orain. Emen eztegu talo ta esnea, bañan bai ogi xuria. Asko ikasten det: onak izan denok».

Otermin'tar Joxe Mari, 13 urte

ETXARRI'tik: «Etxarri'tik atara giñen kanta eta kanta oso kontentu zengaitik orduben asten zen eskursioa. Geldi-geldi allegatu giñen, gareya balinbazen Lezo'ra eta erri artan aitu giñuben Meza santuba eta Meza ondorien denak fan giñen musu ematen Kristo santuari».

Jauregi ta Flores'ar L. M.

HERAURITZE'tik: «Nikole ttipia bere amari musuka ari da. Aitari galdegiten dio: —Aita, nola jakin zinuen nik ama hau nahi nuela?».

Jean-Claude St. Jean, 9 urte
OLAZAR Martiñ'ek

EUSKEREAREN EZKUTUAK

IKASBIDE EGOKIENA

Euskera-ikasketan aurrera ba'zoaz, edo zeure izkerea ta idazkerea sendotu ta edertu nai ba'dozuz, **La Gran Enciclopedia Vasca'k** argitaldutako urrengo idaztiok bear-bearrezkoak dituzu. Orreik ondo artzertzean eta ikasiaz, Euskerea eskuratu dozula esan daikezu:

AZKUE'REN IZTEGI NAGUSIA.—Euskera-gaztelera-parantzera. 1905'gn egin zan argitalpena ber-bera barriz, ale bitan. Ta beste bost milla itz geiago, Azkue berak arrezkero batuak. Itzak, nungoak diran eta zelan erabilten ziran, agertzen dituala.

EUSKAL ABESTIEN BILDUMA.—Cancionero Popular Vasco. Azkue jaunarena au be. Ale bi. Euskal abestien itzak eta doiñuak; danetarikoak: eleiz, eztai, maitasun, biotz-min, dantza, aurtzaro, barregarri ta edatailleenak...

PERU ABARKA.—Mogel aundiak itzi euskun irakurgai, iztegi, edesti, lanbide, oitura, jazkera ta euskal-izakeraren zeaztesunak, danok batera, erraz ta sakon aztertzeko aiñakoa. Ale bat.


ITXASTAR IZTEGIA.—Garmendia'tar I'ren lan aipagarria. Ale bat. Arraintzale, itxas-gizon, ontzi-gille, ta idazle-izparlariak aztertuko dabena; baita euskerea ondo ikasi nai dabenak be.

EUSKAL ITZEN-EITE, edo morfolojia. Iru aletan. Azkue ta Altuna'ren lan zoragarria. Au dogu euskera txukuntzeko eragin-gaillu onena ta bakarra; au barik ez dozu iñoiz jakingo ondo ala oker zabiltzanik.

Eskatu **«La Gran Enciclopedia Vasca»'ra,** Apartado n.º 1510. — BILBAO

GERO ARTE, IRAKASLE...!

Orril'eko Hit Parade neurketatik ez daukagu barri askorik. Zorion barriz be aurretik, bere «Bizi Beti Euzkerea» polit orregaz. Disko barriak datoz gogor, batez be Xabier Madina eta «Kresala» taldekoenak. Arek lengo «Gu Nagusi» a ta beste bat be gora dakar. Oneik euren «Egi Bidean» orrekin bide barriak urratzen. Ara baiña, gaur, tamalez, beste zerbaitetzaz diardugu.



ASTI

* * *

GERO ARTE! Ori izan zan lengo baten Cisneros ereslariari, Bilbo'ko akeit-etxe baten egin geuntzan agurra, «Columbia» disko-etxeakin artu-emon bateri azken-ona emotean. Gero arte! laister alkar ikusteko asmoan...

Ara baiña, il onen lenengoan, gaberdi inguruan, urrutikuskiñetik Cisneros jaunaren eriotzaren barri jaso gendun. Ezin izan gendun geiagorik entzun. Ez ziran aste bi agur egin geuntsanetik igaro, «Gero Arte» aregaz, ta ordu gitxi lenago, bere eskutitz bati be erantzun. Baiña izpar ori zeatz emon eben. Ziñestu egin bear. Zenbat gogorapen...!

Ia ogei egunez egon zan Bilbo'n. Lenago be birritan egona zan gurekin. Lenengoan, artu-emonetako aurre-urratsak emotera ta euskal-abeslariak entzutera. Gero, eurekin erabakiak izenpetzera.

Ta gogorapenak aurrera... alkar-izketak, izkiri-miriak, gertaldiak... Euskalerrian egin dabena sakon dabil inguruetan. Guridi'tzat eta euskal-folkloriatzat erakutsi eban itzala. Erraz goraldu daikegu gizon jator onen lana, ba-ekin bai berea zein ta zelan zan. Gogapen on-onak itzi dauskuz gure artean.

Baiña gure makaltasunean, ez garala ezer idatz-gaietan, biotz-min onek ezer obarik asmatu ezin dabela, gogoratze maitekor baten lotuko gara...

Estitxu, Biotz-Alai ta San Anton'go abesbatzak, «euskal-ipuiñak» antzeztu eban taldea, «Euskal Mezea» osotu ebenak, Bilbo'ko txistulariak, Lakuntza dultzaiñalari anaiak, Zuaznabar txalapartariak, Ansola anai txistulariak, Loroño'ren auspo-jotzailleak, Naikari eresbatza, Gau-Txoriak taldea, Garitano, Guillermo, Txilibrin, Balbino, Asier Loroño, Maritxalar a. ta a., ari eskerrak disko irarketan jardun eben danok, ta euskal-erriko eres-saillarekin bat, auxe diñotse, maixu ari: ESKERRIK ASKO... ta... GOIAN BEGO.

Zuk egin dozun lana, Cisneros adiskidea, ez dogu euskaldunok aaztuko.

JUAN MANUEL ARES

ZUGAITZ ABERASTASUNA

Baso ta oianetako aberastasun garrantzitsu ta bearrezkoena gizonarentzat zura da, egurra. Basoetako biztanleak, geientsuenak beintzat, zurezkoak ei dabez beren etxe ta etxola, bizilekuak, ta, tropiku, beroaldeko basoetan bizi diranak batez be, zugatz-orriz estaltzen dabez exte-gaiñak, tellatuak; beste en batzuk ostera, Pilipinas'en esate baterako, nipa izeneko palmakiz edo onen antzeko belarki ta belar luz ta sendoz egin daroez. Basoetatik urruti bizi diranak be, zura bear izaten dabe, bai etxegintzarako ta bes milla gauzatarako. Erredizu, tresna egilleak, ol-mueta, berezi, bakanak bear izaten dabez bere langaiterako baiña, egurrik geiena ore biurtzeko izaten da. Ingi-lantegietan egiten dan zuraren ore ori, gero kartoi, idazk aldizkari, izparringi ta abar, gizonak egunaro bear dabezan anitz gauzatarako erabilli ta biurtzen da ta erraion edo, seda artifiziala be, orrela egin daroe.

Zur-ore ori egiteko erabilli izaten diran egurrik egokienak, lerradi basoetatik ekartzen dabez ta, bera, lurralde barruti orreitan oiñarritu dira munduko zurketari garrantzitsu, nagusienak. Lerra-zugaitzak txuntxun dunak dira, ta, geientsuenak orri eze, iostorratz tankeradunak. Pitzea (izai gorria) ta, izaia, piñua, zuzia... auek dira bai, lerrakietan, endarik erabillienak. Zur-industrian, mueta auengandik ataratzen danari, «bigunezkoa» deitzen dautse.

Munduan lerradi, baso-zerrenda zabal, aundienetako arlo bi arkitzen dira. Auetako bat, Ipar Amerika'ko egal batetik besteraiño edatzen dana, ta bigarrena, Europa ta Asia barrena, gitxi gorabera, gosaldu eskualde bardintsuan arkitzen dana. Ipar Amerika'ko basoak, zerrenda gaillenaren egoalderantza luzatzen dira, Rocosas izeneko ta, beste mendikate batzuen sartalde barrutietako alderdibera. Britaniar Kolumbiako egurastaro gozatsu, epelean, Washington eta Oregoi alderdietan asi oi dira, munduko zugatzondorik berezi, luze ta lodienak. Adibidez, Kaliporni'ko zuziak 1,80 metroko zabalera edo gerri-zertzena eta, 60 metro baiño geiagoko goidura izaten dabe auetako askok. Ostera, Rocosas izeneko mendidiaren sortaldean, egurrastaroa legor eta gogorragoa izanik, ez dira ainbeste asi eta, loditzen eta, zio orregaitik ol-oretzako aukeratuak izaten dira.

Europa eta Asia alderdietako lerradi, basoetako zugatzen aundierea, Kanada sortaldekoen neurri antzerakoa izan oi da.

Ipar Amerika sartaldeko basoetan zurketariak ebagi-lana, urte osoan egin oi dabe, ta, zugaitzak zelai ebagi alan kamioi eta bultzietan eroaten dabez. Ordea, sortaldeko basoetan —eta, baita, Europa eta Asia'ko tan be— zugaitz-ebakite ori, Udazkenez eta Neguan egin oi dira: gero, giro onakaz, Udabarrian, ibai izoztuak urtutzen asten diranean, tantaiak ibaibera, serratoki ondoraiño, eroaten dira.

Egoaldeko lerradi-basoetako muga inguruetan, beste zugaitz-mueta ezberdin batzuk be, bai, izan dira: aritza, zumarra, lizarra, piñuakaz naste. Egoalderago baliteke bai, orrelako zugaitz-basoak izan baiña dakigunez gaur-egun, oso urri arkitzen dira besteakaz alderantziz.

«Orri erorkor, edo zimeldun» izenez izentatzen dira zugaitz-mueta orreik, neguan orria galtzen dabelako. Munduko bigarren sail, baso-arlo aundiena, «Oian ibilbageak» edo, obeto esateko, gizonak orain menderatu ez dabezan basotza ikaragarriak osatzen dabe. Au da: Amazonaz (Ego Amerika'n) eta, Afrika'ko Kongo'n, eta, baita, Asia'ko ego-sartaldeko zerrenda luze-zabaletan, kaoba eta, beste onen antzeko egur gogorreko zugaitz-tantai, lerden, bikaiñak asten dira. Baiña, «teka» deritxona, «indi-aize basoetan dauka bere sorlekurik onena, Birmani eta Tailandi'ko lurretan. Egurki zail, gogor auek, beste lerraki bigun baiño asko gitxiago erabiltzen dira.

Gizonaren kaikuri, dana-bear berekoiez, munduko aunitz lurralde, bazterretan, baso aberats osoa betiko galdu izan dira, bear zan baiño geiago ebagi eta barririk erein, landatu ez dabelako. Batzuetan etxegintzarako oltzat edo, egurtzat bakarrik erabilli izan ditu; beste batzuetan industria barri bat sortzeko tokia edo lugintzarako lurra bear izan daben zioaren bidez.

Esandako geiegikeri au izanda batez be, «orri zimeldun» muetako, oian eta, aunitz basoren, Europ sartaldean artu daben negargarrizko ondamendia.

Iokabide txar, ganorabako onek, Txina'ri be, garai batean, oso kalte aundiak ekarri eutsozan; lurra legortu, erresomindu, antzituz eta ugolde, eurite ikaragarrien bidez, bein baiño sarriago ondatuta geldi izan zan, zoritxarrez, eta, gaiñera, olik barik edo ol gitxiren iabe.

Ipar Amerika'ko lurralde batzuetan egurkari, zurketariak, baso barriak sortu, landareak asi bai bi biderrez geiago ebagitzen ari ei dira eta, onela, iakiña da bai, urte gitxi barru, zelako kalteak ekarri dabezan iokaera tamalgarri onek. Beste bidez, egia esan, laterri arduratsu batzuek, zur-industri garrantzitsua dabenak, erabagi egoki eta bereziak ar izan badez, neurritik kanpora, iñok ez ebagitzeko agindu zorrotza emonaz, orrela landatzen diran landara gazteak bear dan aiña denpora izan dagien.

Izadiak berez ezin dabenean, gizonak lagundu bear dautso landare barriak landatuz. Suomi, Suez, Noruega'ko laterriak zentzunez iokatzen ari dira, zientzilari eta agintariari esker, ebagitzen daben bat zerbait geiago landatuz; erriaren ogibide eta onari begiratuaz.

MUNIATEGI'TAR SABIN

ERRIETAKO BARRIAK

Mungia

Jose Maria Cirarda Gotzain jaunak aldara bat sagaratu ta, erriko semea dan Jesus Maria Perez Enzunza, abade-ordenatu eban Orrillaren 23'an. Egiketa santu oneik, lenengoz euskeraz egiten, ezagutu doguz. Udabarrian, munetan, lora zuriak urtetan dabe. Alantxe, gizadiko udabarrian, bat agertu da Orril onetan Mungia'n. Ainbeste urteren joanetorrian, burua argitu, biotza esi ta bizitzako milla gaiztasun menperaturik, ekiñaldi orreri elburua eldu jakon. Orrillaren ogeta-irua zan. Gazte onentzat ta bere guraso ta anaiarrebentzat egun pozgarria.

ZORIONAK! Ta beste askorentzat be egun gogoangarria. Ekin eta jarrai!



Goizeko amarretan Eleizea, ormak artualan, jendez beterik egoan. Anai baten eguna zan. Egun berezia. Mungiarrak, ondo egin zenduen egun orretan zeuen anaiagaz alkartzean. Gazte orrentzat egun arduratsua zan. Bizitzan, bein emoten dan oinkada bakarra. Jesus Maria'k bere jaioterrian artu eban, betirako ustean, zama astun eta eder bat. Erriak lagundu eutson, euskaldun askok eta askok beintzat.

Geldiro, baiña aurrera goaz. Euskaldun poz batek askori dar-dar eragin eutsen. Bizkai eder onetan, lenengoz ikusi dogu abadegintza bat euskeraz egiten. Etxebarritarra zan, ordena ori era orretan emoteko euskeratu ebana, ta mungiarra abadetza euskeraz artu ebana. Etxebarria ta Mungia, abadetza artzeko orduan, Mungia'ko lur gaiñean besarkatu ziran.

Orain, zor bat geratzen jaku Jesus Mari, bizitza guztirako: Egiaren bidez erriak azkatutea. Ez da erreza, illunak indar aundia dauko-ta. Baiña aspaldi dabiltzaz odeiak eta eguzkia burruka gogorrean. Norena izan bear ete dau azkenengo berbiak? Argi dago. Guztiok egizale izan bear gara. Illunak naskatu egiten gaitu; argiak barriz poztu.

Egia emon bear dautsagu erriari, argiaren poztasunagaz. Erri bakoitzak dauka bere egia. Ori emonda, salbauko dogu gure erria.

PAULIN

Arratia

Naiz-ta eskuare edo eskutillakin Arratia'ko ibarrai narrua urratzen ekin, barri garrantzizkorik ezin billatu, ta Euba'ko Euskal jaira joan nintzan. Eguerdian, Etxebarri'ko Yontxu'ren lenengo Jaunartzea zala-ta, arratiar mordo ederra ezarri giñan mai oparoaren inguruan, eta bazkalondoko jardun eta barriketearen ekiñak agertu euskuna emen dakartzuet:

Dima'ko Emaldi'n dogun Bernaola aitonak, orpe bete gaztai ditu, dirala iru urte egin zituan; beratu naiz egosi ez dira biguntzen eta sagurik-eta gosetienak be ez dauke zer egiñik. Olan izanik, eta San Antolin'etarako deia izan dogularik... Aita Leandro'k bedeinkatu ta bigunduko al ditu.

ERKOLES.—Euba'ko baztertxo bateko auzunea da. Etxez, urri; zelai zabalak, landa ta bedarrez ugari. Emen izaten zan jaiaren edertasuna, urterik urtera, txepelagoa dala ikusirik, jai-eratzaille barriak jagi dira, jaiaren izena ta izatea lenagoko goi maillara jasoteko.

ARRATIARRAK.—Aitaturiko auzunea ta jaia indarbarritu ta jaizaleai dei egitera etorrita, emen izan zan ba, bederatzi neska-mutil gogotsukin osotua dan talde barri-barria, «Oiartzunak».

Lenengo, jaiari asiera egiteko, Euba'ko «Ibaiak» bikotearen abestiak txalotu genduzan. Bigarren, Patxo, garaitza askoren jabea. Ondoren, Goyenaga'tar J. Anjel, abotsez gozo ta indartsu. Urrengo, Ander, oarrak eta azalpenak egiten, kitarrakin, abestu naiz bertsotan berebizikoa dogu. Bostkarren, Ander-Belen bikotea. Seigarren «Oiartzunak»; ta azkenean, entzuleen txalozko eskariari erantzuten, Ander eta Patxo. Ander'en maitasun-abestia baiña izan izan polita bazen itxaropentsua oillanda gazte entzuleen biotzentzat. Adizkide, ez adi alegindu neskatillen biotzak atsekabetuten.

ENTZUN ETA ERANTZUN.—Matrailanean, lokietatik izerditan ari ziran gizonetariko batek, Etxebarri'ko sukaldean: «Arratiarra izateko, nai-ta ez, panparroia izan bear». —Bedia'ko Olano'tar Yon'ek—.

Eta eubatar jatorra izateko barriz... tripazai andia izan bear.

LANDAJUELA'TAR A.

Bolibar

Iru Bolibar dagoz, nik dakidanez beintzat, Euskalerrian. Bata ezagunena bera Bizkayan. Beste bat Araban, Gamiz onduan. Eta irugarrena, barriz, Guipizkoan, erritxu baketsu eta ederra egitan, dan-dana euskaldun utsa gaiñera. Emendik idazten dot, Gipuzkoa'ko Bolibar'tik, alegia.

Urtean-urtean Orril barruan «Andre Maria'ren Eguna» deritxoguna ospatuteko oiturea dogu emen. Eta alan, aurten be, Loreillaren 23'garrenez ospatu dogu. Aurten gaiñera, gertakizun berezi bat genduan egun orretan, egunero ikusten ez dan gertakizuna bera, gañera. Loreillaren 21'garrenez, erritxu ontako seme bateri jai aundiak eskeintzen eutsoezan itxasoz andiko Chilen. Eta, jakiña, bere erritarrak eziñ etsi zeozertxu egin barik.

Erriko-seme agurgarri Aita Teodoro Iriarte Pagalday, Trinitarioak, bere Meza Barriaren Urrezko Eztayak egiten ebazala-ta, Chileko erri aundi San Carlos'en jai aundiak izan be egin eutsiezan. Eleiz eta erriko agintariak bat eginda, «ERRITAR ONGILLE» izena emon eutsien, mezako itzaldia Chillan'go Gotzai Eladio Bikuña Arangiz Jaun Guztiz Itzalgarriak egin eban eta erriak eskuerakutsi eder bat emon eutsan. Barri onek eta beste asko jakin genduzan, poz aundiz ganera jakin be eta ezin egon giñan zerbait egin barik geuk be.

Aita Teodoro, 1896'garrengo Loreillaren 12'an emengo «Lapatza» izeneko etxean jaio zan. Oraindik emen askok ezagututen dabe, naiz-eta komentura joan zanetik errian agertu ez. Eta bere lau arreba oraindik bizi direz. Gazterik joan zan Algorta'ra eta an lenengo urteak eginda gero, laster bialdu eben Ameriketa'ra eta an egin dau bere bizitz guztia, en egin zan apaiz eta an egin ditu bere apaizlan guztiak be. Arrezkero, bein be andik urten barik, bear bada bere jayoterri maitera ez etortzea Jaungoikoari eskeñiaz, lan da lan jardun da eten barik, gaur arte. Ez ete dogu emen noizbait ikusteko zorionik izango? Auxe litzakela, uste dot, aldi egoki-egoki bat.

Chileko omenaldiaz bat-eginda, «Andre Maria'ren Eguna» berari eskeiñitako egun lez artu genduan, zelan ez? eta Meza bietan bere bizitzako goraberak aitatu zituezan, baita Meza Nagusi ostean erriko Erretore Jaun eta Aita Zibiaga'k erri osoakin batera «Te Deum» abestu be Jaunari eskerrak emoteko.

BOLIBAR-ZALE

Usansolo

ERRIKO GORA-BERAK

Jai eder bat izan dogu Usansolo'n, igaro dan illean, Andra Mari'tik Usansolo'ko txadonera Gure Jauna lenengoz ekarri zanaren oroigarri dala-ta. Urterik urtera, jai ori gorantza joan da, baiña gaztediak bere eskuetan artu eban ezkero egun ori antolatzea, beste itxura bat artu dau. Zar eta gazte, alkartu giñan an izan ziran jolasetan.

Tamalez, ez ziran jolas eta elizkizunak ondo aldiz-bateratu, ta elizan egon ziranak, jolas batzuk barik geratu ziran, ta jolasari garrantzi aundiagoa emoten ebenentzat, ordabatetako mezea, geure euskerazko mezea, galdu zan. Egin alegiñak aldiz-bateratze on bat egiteko urrengo urtean, euskaldunok danok meza ta jolas guztietan erkide izan gaitezan.

Ainbat gauza eder ikusi ziran, baiña nire ustez, jai-burdiak izan ziran atsegingarrienak. Danetarikoak agertu ziran: Ijituak euren artuemonakaz, naiko barre eragin euskuen, baita Kleopatra ikusi genduanean be. Bost jendeki ikusten ziran, gizarte maitekorragoa eskatzen dan jai-burdian. Baiña Usansolo'ri kili-kili andiagoa egin eutsona, «Zergaitik?» ipinten eban jai-burdia izan zan. Ta sarritan jazoten dana. Gauzak ontzat artu barik, batek baiño geiagok ez eukiazan zuztraiak ikusten eutsezan. Zergaitik ezin ete-doguz, urkoaren asmoak, begi argiakaz ikusi? Noiz gorrotoak, naiz batekoak naiz bestekoak izan, gure biotzetatik aldenduko ete-dira? Noizko maitasuna, alkartasuna? Urrengo urteko jaientzat, eskaria: Danok bat izan gaitezala, Jauna!

Jai onen ondoren, beste bat, laburra berau, Labea'n izan dogu. Isidor Donea, gure auzuneko gidaria izan da beti, baiña ez dogu izan bere irudirik orain arte, Labea'n. Bere egunean, ta auzuneko diruakaz ordainduta, bere irudi bat bedeinkatu euskun Don Bittor'ek. Au dala ta, agurtza donea, umetxoaren eskaria, euskeraz eta erderaz, Isidor'i bere menpean beti izan gaitezan, ta jolas labur batzuk genduzan. Ia zuztrai sakon batzuk emoten dabezan jai onek, ta euskerazko meza eder bategaz asiaz, egun zoragarri bat izaten dogun datorran urtean.

TXIRRINDULARIEN TXAPELKETEA

Ainbat urtean, Orrilleko gure jaiak alaitu ta betetan dituan «Gran Premio La Ascensión» deritxoen txirrindularien txapelketea. Aurten bere onen itxaropenean gengozan, baiña azkenengo ordu baten, ezetza emon eben, bide zabaleko zuzendari diranak. Aurrerapide andiak daukaguzala, baiña ez dakit atzerantza ez ete goiazan. Bide onetan jaraitzen ba'dogu, azken-agurra emon bearko dautsagu gure errietako jai guztiai.

Ezingo ete-da erdiko biderik aurkitu, erriak izan dituen jaiak, jarraitu dagien? Ala ez dau jolasik bear, lantegian bere bizia emoten dabenak?

ATXUTEGI'TAR JULENE

Galdakano

Aspalditxotik asi barriak dira auzo jaiak. Orrilaren 2'gn igandean Usansolo'koak, gerotxoago Labeaga-bakoak eta il orren azken larunbat eta igandean Firestone erriska ta Aperribai auzunekoak. Azkenengo jai oneitan, ba-ziran eusko jai-aldi batzuk: «Andra Mari»'ko dantzari txikerrak, bertako abesbatzaren abesti bikaiñak, eta arratsaldean asuspo-jotzaille gaztetxoen leiaketa. Baiña euskeraz? tautik bez, ez eleizan ez jolasketetan, aurkezpen erkin bat bez euskeraz. Nun da alderdi ortako gaztedi euskotarra, ori baiño euskera zaletasun geiago ez daben gaztedia?

Usansolo'n ospatu ziran jaietan, beste jolas batzuren tartean, erri-oiturako burditzaren ibilketaikustea ospatu zan, eta burdi baten, iragarki au ikusten zan: «Oletxe, Torreondo» ta zarrastuta, tatxauta alboan «zergaitik?» itauna. Burdi orrek izan eban txalotsik andiena, usansolotar jatorrak ba-ekielako zergaitia, baiña burdi orren gertatzailleak Erriko etxera deituak izan dira, zergaitik?... Etxe ospetsu orreik egon ziran txaideari izena aldatuta, euren asarrea erakutsi dabelako? Ba'litzake.

Ganguren mendigoizaleak, igandero diardue, zerikusi zerbait daben mendiak zear, berebil andi bat edo bi bitarteko dabezala, txangoak egiten. Baiña datorran Dagonillaren 14, 15 eta 16'gnerako gertatu daben txangoa izango da garrantzitsuena: Euskalerririk geienari emongo dautse bira-birea, ta geiago, au da:



14'gnean Galdakano'tik urtean eta Donosti ta Baiona zear, Lourdes'era. Emen bear diran ikusketa ta eleizkizunak egin ta urrengo egunean, 15'gnean Tourmalet'era ta inguruetako beste mendi batzuetara igon, eta barriz Lourdes'erantzan, Garikoitz euskal deuna bizi izan zan Betharrame'ko atx-zulo ospetsuak ikusi. 16'gnean etxeruntza; Atarretse, Don Ibane Garazi, Luzaide ta Orreaga ikustatuz ta Iruña ta Gazteiz zear geure errira itzuli.

Txango garrantzitsu onetarako, berebil andi bi gertatu dabez, baiña lerro oneik agertu orduko, bat eta geiago beterik ei-dagoz, eta irakurleren batek nai ba'leu txango ortara joan, arin ibilli daitela agindu dauste, bestela...

BASA-JAUN

Bilbao

Iñurri-zuri edo zur-iñurriak dira. «Anay» izena Pilipinas'en damotse, ta Cuba'n «Comejen». Ba'leiteke beste bi oeik, bestalango muetak izatea. Zeregin ori, mamorro onein ikasketan dabiltzan abel - iztilariari damotsegu. London'en orain bertan, Zoo-baratzean, burdiñaz, zementoz eta leiarrez ondo ertsitako etxe-ikustoki ta ikasi-bide berizi bat egitera doaz, iges egin lezakenaren bildur andia baiña.

Beti lurpean, argitik at, zuraren barnebarnean bizi dira. Sitsaren kideko ondorioetan dira. Augaitik txito kaltegarriak etxeetan, oneik geienbat zurezkoak diranean. Zuraren guna, barruko mamiña, ezari-ezarian janik, laster, nabaritzeke etxeko abe sendoenak porrokatu oi ditue, ta orrela bapatian eraikitze onenak jausierazo. Aspaldi baten onelako iñurri-zuriak Bilbo'n izan genduzan, esate baterako zazpi kaleetan eta Bingen Donearen Elis-Nagusian.

Oingo txandan, Josu-lagunen bizitegi-residenzi Eleizan agertu dira. Ez ei-dabe itxuraz kalte aundirik egin, osakaiak mugonez eldu ta berealaxe ta etengabe ogei egunetan ezarririk, Josu-baten garbitu dabezelako, ziñez. Ba-ete-dago beste termiten abirik Bilbo'n? Ezin geinke gaurkoan ziurtasunez egiztatu; Bilbo ezeze Bizkai guztia ere urteko illerik geienetan ezotasunez kuin-kuin datzanez, ezotasuna zugaitz ta egurren ugari tasunari baturik, termitentzako, euren bizitokiak aukeratu ta ugaritzeko, egoki be egoki dira-ta.

ROMUALDA IL YAKU

Bilbo'ko Koliseo-Albia'n, oraintsun izan gendun Euskal-Mezearen abestaldian, ezagutu neban. Orduko gaixorik ebillen; arpegi zurbillaz baiña gogo kementsuz jo ta ke agirian, gizoste aurrean azkenengoz bere atabaltxoa, panderetea erabillan. Atanboraz ez ezik albokaz bere, noizipein erri-jaietan santzoz ta irrintziz naasturiko soiñuaz, baliatzen zan ta polito baliatu be.

Atzerrira be joanikoa «Dindirri»'ko dantzari taldeagaz, beti alai, beti gartsu ta oldartsu agertu oi zan. Romualda Zuluaga, Galdakano'ko «Txapelgorri» baserrian jaioa, Euskal-zaletasunez beterik bere bizi guztia igaro ondoren, joan dan Orrillean betiko joan iaku. Geure oitura zarren eredu bakana dogu auzas. Jaunak bere errukitasunean zeruratuko ebala ditxarogu. Gurekiko, eskeiñi daioguzan geure otoi gogotsuak. G. B.!

ARREGI'TAR JOSU

Berriz

Berriz'ko jaialdiak, «AGUR» aldizkari onetan irakurriko doguz.

Maietzaren 27'an ospatu genduan Andikona'ko Amaren eguna. Jaia egoki ospatzeko, bertako mutil gazteak jaialdi bat gertatu eben, bertsolariakaz eta Berriz'ko «Izarrak» taldeaz; baiña utsune bat ikusi genduan: jaialdietako programarik ez genduala. Alan eta guzti be, jente asko etorri zan. Mutillak!, ia datorr enurtean geiago arduratzen zareen jaiak obeto eratzen.

Bagillaren 24'an, San Juan eguna, **Murgoitio** auzunako Zaindariaren eguna. Aurten be, jaialdi bat oso ardura aundiaz diarduela gertatzen entzun dogu. Gaiñera, auzoko gazteakaz bat eginda, beste talde batek be parte artuko dauanaren surrumurrua eldu yaku. Aurten, jaia ille onen 20'an egingo da, eta egun onetan lagun asko elduko dala uste dogu, gazteak batez bere. Aurten ez dogu izango egun onetan Berriz'ko umetxoen talderik, dantzan egitera Mondrago'ra joan bear dabe-ta.

Gure AGUR onetatik, guztioi jai pozgarriak opa dautsueguz.

Azkenez, Berriz'ko erri guztiaren izenean, zorionik beroenak Mojen Bikario dan Solazaba'dar Paulo abade jaunari, bere larogeta amar urte-betetzean. Zorionak, D. Pablo!

KARMELE

Basauri

«Baskonia» kirol bazkunak antolatuta, Basauri'ko gaztetxuen I Ostikoketa Txapelketea jokatuten dabiltz, amets andi ta girorik onenean. Ogetasei talde edo ekipo danera, ta amar urtetik amabosterakoak diranez, elitzake egoki izango adin guzti orreitakoak talde baten jokatutea, bost urteren aldea andian danez adin orretan.

Azbarren'go landan jokatuten dira, naita txarto aurkitu euritze azken bakoen erruz. Ori dalata, bein baiño sarriago erakutsi bear izaten dabe euren indarra ta kemena, zutik egotea be naiko dan leku lupetsu ortan. Leiaketa ontako oarrik urtenena. C. D. El Porron taldearen ber-sortuera izan da, ta basauritar askorentzat poztasunik aundiena, berbizkunde au atsegin yakoelako. Ori erakusteko, berreun eta berrogeitamar bazkidetik gora egin dira, datorran Iraillean bazpatuteko, federatuteko asmo sendoaz. «El Porron» 1932'gn sortu zan, ta aldi artan jokatzen ziran leiaketa gogor eta goralgarrietan aurrenengo bat izatera eldu be, «San Isidro» ta beste auzuneetakoen andoan. 1936'gna ondoren baiña, aldenduazoa izan zan, kiroletik at, errizaletasuna erakutsiten ebalako bear ba'da. Talde ortik urten eben gerora ain ospetsuak izango zirian Bizkarguenaga'tar Poli, Elizondo'tar Kami eta Bizkaia'n izan dogun ostikolaririk onenetariko bat, Bilbo'ko, Bizkai'ko Atletik'en buruzagi, kapitan izandako Gainza'tar Austin, ludi guztian ezagun izan dan «Piru» kementsua ta errizale zintzoa. Badira baita gitxiago ezagutu arren, talde onegatik euren alengintxua egindako beste asko bere.

Geroago be urten ziran beste izen batekin: «San Fausto» izenagaz, lengoa erabilten itxiten ez eutselako, beti izan da baiña goralgarria euren jokabidea, kiroldar lez baita gizazale legez be. Orregaitik, ain pozik artu izan da errian bazkun onen sorkera barria.

Azkenez, «Baskonia» kirol bazkuna goraldu bearrean gara, amaitu barri dan III maillako leiaketan lortu daben mailla edo lekuagatik, 6'garrena; bera baiño obetzat egozan beste askoren aurretik. Baita Uriona aurre-erdilari trebea be, txapelketa ortan sartu dituzan 24 gol orregaitik. Basauri, beti izan da ostikoketantzat amaituten ez dan arrobia, ta ziur gagoz orregatik, barriz be orniduko dala jokolari onekaz, «Baskonia» ta Bizkai'ko ostikoketea. Gogotsu «Porron» eta gora «Baskonia»!

KOLDO

EUSKAL - ERRITIK BEGIRA

Il onen 21'etik 23'ra, Luxenburg'en Inglandarrentzako arauak erabagitekotan ziran. Eguzki-goi'aren ugaritasuna ala Sanjuan suaren kizkaltzea ete-dator? Zer ete-diñoe Europa'ko **erriak,** benetako erri aaztuak? Onei ez dautse ezer iñork galdetu ez eskeiñi be.

* * *

Noruega'n % larogeik ez ei-dabe Europa'n sartzerik nai. Au diño beintzat «Dagbladet» ezkertiar izparringiak, galdeketa-inkesta baten ondoren. Aberatsak ta ikasi-aundikiak, sarrera orren alde, bakarrik ei-dagoz.

* * *

Ta Man, Jersey, Guernsey ta beste ugarte erdi-azke ta zoriontsu orreik estu, zer asmatuko ete-dabe eurengan! Orain arte, ia zerga barik bizi izan dira, euren lurraldeen eta arraintzalekuen jabe. Aurrerantzean, zer? Txikiak dira baiña.

* * *

Larogeitamar milloe pezetaren Antze-toki bat jasoko dabe galestarrak Cardiff'en, lenengoz azken 50 urte oneitan. Antzoki aundi bat, aize-girotudun entzun-toki bi, ta antzerki, urrutikuskin ta kine azterketa, ikasketa ta saioak egiteko esparru bat bertan. Datorran urtean zabaltzekotan dira.

* * *

Rh utsgora (+) ala utsbera (—)? Ama izateko diran askoren odol ardurea. C. A. Clarke jaunak diñoanez, utsberako amaren utsgoradun aurrak kalterik izan ez dagian, eta onek urrengoei egin ez dagien, «antiglobulin» ziritxoak lagunduko ei-dautsee. Erditze, aur-galtze ta odol-laguntza-artze ondoren, bereala emon ezkero, ez dau urrengorako okerrik izango, geienetan. Ala ta be, aurretik iñoiz erditze, aurgaltze-aborto, batez be ezkutukoa, edo odol-aldatzerik izan ba'dau, utsberadunak utsgorakoagaz naaste, eztitxo onek ez dautso ez txar ez onik egingo.
Ta, jaioko lirakenen alde ainbeste buru-asute diarduen artean, ara:

* * *

22.774 legebarruko aurgaltze edo aborto izan dira Inglaterra'n joan dan urteko azken iru illabeteetan; 544 amasei urtetik berako neska-koskorren artean, 10.857 ezkongaien artean, 644 alargun eta ezkontz-ausituenean. Olakoren bat nai dauskue erriratu emengo mutiko-neskatil listo-pasau ohoretsu batzuk.

* * *

V. C. Shukla'k, India'ko Guda-ordezkariak esan dabenetik, laterri orrek, laister, atomikbonba egitea lortuko ei-dau. Gari, ur-olo, okela ta orrelako uskeriak, erbestetik bialdu bearko dautseguz, ez da?

* * *

Pimen eleiz-asaba, Errusi'ko Ortodoxo'en buru izentatu dabe; laugarrena 1917'gngo bolxebik'en iraultzatik. An zan Makarios, an erromarren izenean Willebrands jauna. Kezka bat beti: Jaungoiko'ari ala Kaiser'ari begirune andiagoa laterri orretan?

* * *

Amerikarrak Japon'eri ezarri eutsen Araudi-nagusia —kosntituzioa— aldatzea japondar guztiak nai dabe, ez baiña era-berean. Eskumarrak eta indarraren jabe diranak, bertako kaiser ori jaungoiko txiki bat lez barriz jartzea gura dabe: Nipon erriaren batasuna, guna ta pakea bera ei-da. Ezkerrak bildur, luzerorako azpiratzea besterik ez dala izango-ta.

* * *

Turki'ko ezkertar lez agertzen diranen gogorkeriak, erria asarratu dau ta onen onespena galdu zearo, ta indarkeriaren alde dagozen indartsuei jauntxo-bideak zabaldu ta makil-otsa bearrezkoa lez agertzen lagundu; ta erri azpiratua etxeko ate-osteetan lotu.

* * *

Pompidou'k europarren izkuntza bere prantzesa izan bear dala diño; inglesa amerikar arrotz orrein izkuntza dalako. J. Valenne beljikarrak au erantzun dautso: «Ta prantzesa, aprikar milloiena ez ete-da ba?

* * *

L'Express eta J. J. Servan-Schreiber'en artean ez dabil dana zuzen. Ori ta onek bere «Le Défi Americain»'a aztuta, amerikarrei dei dagitse bere Nancy ta Lorraine orrein atzera-bearra eten ta lantegi barriz beteteko. Gizonak eta euren urdaillak baiño asmoak izan dira beti obeak!

* * *

Keltar erriaren Eres-abesti saioa izango da laister Galizia'n bertan. Lusitar, bretaiñar, eskozez, galez ta irlandarrak ei-datoz, aldi-luzerearen kerizpe-illunak ezkutatu daben euren Asia aldeko lurretatik urten ebenetik lenengoz alkartzera.

BEGI BI

ELEIZEA GIZARTEAN

Apaiz-batzar garrantzitsua izan da oraintsu Ginebra'n. Batikano II'go Batzarraren ondoren egin diranetatik garrantzitsuena ziur asko, gai oni buruz. Batzar ontan entzundako itzak eta eritxiak eta artutako erabagiak gaurko Elizaren pentsaera biltzen dabela dirudit. Batzarra otz-samar ari zan eta bertaratuak be kezkatsu agertzen ziran, eritxi ta asmo ezbardiñak eroiezan-eta. Nork batu ta lotu Inglaterra, Prantzi, Itali, Alemani ta España'ko ordezkarien pentsaerak? Nork eta zelan alkartu? Gai asko erabilli ziran, asko ikusi, arakatu ta sakondu. Gaur eguneko apaizaren lana ta jokabidea, apaizaren ezkongetasuna, erakundea, apaiza ta politikea. Azkeneko au azalduko dogu laburki.


Atsegingarriak izan jataz Ginebra'ko batzar orretan artu ziran erabagiak. Elizea ta politikiari buruzkoa gitxien ez. Ona itz batzutan artutako erabagia: «Elizeak beti be bere arloa izanez eta berenez, ekonomi-politika ta gizarteari buruzkoa ez dala, on-artu bear dau. Alan be, Elizea, auzi guzti onei buruz, erdiko agertzen ba'da, jokabide agiria artzen dau politika-aldetik, agintza daunaren aldetik baida jartzen. Beraz, naizta politika agiria oso-osoan izan ezin. Elizeak, zillegi bidean ta lege-arauz azke iraun bear dau Ebanjelioaren aurka dana jakin-erazteko, ta ebanjelioana dana bete-arazteko».

Ginebra'ko Apaiz-batzarrak argi egin dau itz, eta nere ustez, gizonkiro esan egia. Errezena ixiltea litzake. Gaur inguratzen gaituen arazoei begiak itxi. Eleizea lurrean bizi da, lurrekoak dagie ta, beraz, ezin itxi, ezin aztu lurreko auzi-problemak. Elizeak ez dau politikarik, ez dau alderdirik; ezin egon leiteke onegaz edo aregaz. Egia da. Ekonomi-jokera berezi bat be ezin ontzat artu, ez aldeztu lei. Au be egia. Baiña au ez da naiko erdian egoteko. Agintzen dauan alderdiaren alde egotea litzake-ta. Kristo,k be göra-berak izan zituan agintariekin. Ixillik egon zalako ez noski. Zuzengetasunak eta zapalketak biziro gaiztetsi zituan. Orregaitik izan ebazan jazarraldiak, orregaitik eroan eben gurutzara. Au olan dala, zuzenki diño Ginebra'ko Batzarrak: «Elizeak ezin irakatsi leike ebanjelioa osoan, ezin izan leiteke Eleiz orokorra, olako ta alako bete-bearrak artu barik, Kristo'k eta Igarleak artu ebezan lez«.

«Elizearen zeregiña ez al-da gogozkoa ta ez ekonomi-politika aldekoa?». Onela azaldu ziran Ginebra'n inglandarrak, baiña Batzarrak ezetsi egin eban xedeagertze ori. Eta zorionez! Bai, zorionez! Argi ta garbi ta bildur gabe esan dagigun: Elizeak askatasuna bear dau egiaren alde egin eta zuzengetasuna dongetsiteko. Ixilkeri lotsagarriak ikusten dira gaur. Xerarkian be bai. Jon Bataiatzaillea'ren bidea artu nai ezda, Herodes'en eskolako egiten da sarritan apaiza. Ezertariko nasketetan sartu nai ez. Elizea zer da? ezkerra? eskumea? Ez bata ta ez bestea. Erdia? Askatasunaren alde jarri bear da, ta gero bidegabekeriak eta zapaltzeak salatu, nork egin dituan begiratu barik. Errukarria Eliz ixilla dauan erria. Or ez da, ez bakerik, ez zorionik, ez batasunik izango. Ezin izan!

GOIRIA

SOIN GOGOAK



Gorliz'ko itsas-bazter zoragarri batean, umeentzako osategi bat daukagu Bizkaia'n. Europa guztian ezagutua ta goraldua dan osategia. Bagillaren ogeitabederatzian Areilza osagille jakintsuaren zuzendaritzapean, Kamiña etxegin entzutetsuak egindako osategi argitsu ta eder au zabaldu zan. Irureun bat ume gaixoentzako oe dagoz bertan. Piñu-aize, itsaso-aize ta eguzkia bertako osagille ospetsuen laguntzaille onak dira umeen osasuna lortzeko. Umetxu gaixoak beti pozik ikusi ditugu bertan; janari onak, osagille trebeak, gaixo-zain beargiñak eta amaren biotza daben monjatxoak, poztasun ori sortzen dabelarik. Osategi orretako lana aundia ta onuratsua bai gorputzarentzat, bai ta, ez txikiagoa, gogoentzat ere. Bertan lan egiten daben guztiak kristau onak iruditu yakuz. Eta erlejio-arazoen zuzentzaille abade bat dago beti. Bere lanik aundiena egunero gelarik gela kristu-ikasbidea erakutsi gaixoei. Eta zelako pozagaz entzuten ebezan abadearen jardunak! Eta zelan ikasi Jaunaren bidea, ta kristau bizitza erabiltzen oitu!

Guda-aldian ere ez euskuen erlejio-lanik egiten galerazo. Gero ikusi ditut ainbat eta ainbat, umearoan Gorliz'en gaixorik egondako gizon eta andra, gorengo kristauak. Osategian kristau izaten ikasi ebelako zein ta askotan euren etxekoak siñesgabeak edo otzak izan arren. Esan geinke, ba, gorputzen alde lan ederra osategi orretan eta gogoen aldezko lana ez txikiagoa.

Ta euskeratzaz zer? Gaixo-zain neska geienak eta monja batzuek ere euskaldunak. Antxe ezagutu genduan monjatxo bat umore aundikoa, arreba Josepa Artola, Donostia'ko Pepe Artola bertsolari ta euskal idazlariaren alabea. Aitak bezela ba-eban alabak ere gatza ta umorea ta euskalzaletasuna ume gaixoak poztuteko. Osategiko araudian bertako abadea euskalduna izan bear dala agintzan da. Bizkai'ko ume gaixo asko euskaldunak izanik, eurei euskeraz laguntzeko erlejio-arazoetan. Oranarte lau abade egon dira ta laurak euskaldunak. Bear dan bezela, euskaldunai euskera zor yakelako. Tamalez, osategi-alboerrietan beerakada aundia egin dau euskereak. Baiña ba-dira alde oriau itxartu diran batzuek eta euren lanagaz bai ere orreik baita osategia ere guztiz euskaldunduko diran uste osoa daukagu.

Millaka dira osategi orretan osasuna lortu daben gizon ta andrak. Eta nai ba'dozue itandu geienari euren bizitzan zein aro izan dan pozgarriena. Eta «Gorliz'ko, osategian egon giñan aldia», erantzungo dautsue.

Ain polita ta txakuna izanik toki ori, bertan gure euskera indartzen ba'da, politagoa ta txukunagoa izango dala iruditzen yaku.

GALLASTEGI'TAR KAULD

NOZ ARTE AU!

Lengo baten, illeta batzuetan izan nintzan Zornotza'n. Neure adizkide baten emazteal renak ziran an eta, au dala-ta, ara joan nintzan. Arratsaldea nire adiskidearen gogoa lez egoan illun, negarti... Eleiza bete-bete lagun. Eunetik eun ez neuke esango, baiña geienok euskaldunak... Seiterdiak. Ordu-ordurako ekarri eben gorpua. Oitura ona au. Iru abade, meza alkartua emongo ebenak, eleiz-ateetan.

Bertatik mezea. Ta emen gure zoritxarra. Meza-emoillea erdera utsean ez yaku ba asi! Ba-eukan dotoretasuna, piperra ta gatza aren esateko tayuak... Ta txarrena: olantxe asi ta olantxe amaitu. Bai meza ta bai abesti. Dan-dana erderaz. «Au itzela! Itz-erditxo bat bez euskeraz» iñostan belarrira alboko batek. Ez da erreza irain au iruntzitea. Nire odola, zirt eta zart, bizi ebillan zanetan. Eta orduantxe artu neban erabagi bat, bestela sekula artuko ez nebana: Euskalerriagazko irain izugarri au salatzea... Eta au, asmo bigaz. Lenengo, euskal-soloan gari garautxo bat ereiteko asmotan, ortik gogo-itxarkunde bat itxaronez; gero, olako zuzenbakokeriak gure artetik bein betirako uxatuta ikusteko. Noz arte au abadeok? —Baustista'ren atzamar zorrotza asarrezka daukagu: «ez yatzue legezko ori!».

Jokabide onen aurrean gauza bi bakarrik siñestu neinkez nik: edo bildurrak edo gogo txarrak jota jausi gareala zulo onetara. Ezjakiña ezin emen atxakitzat ekarri. Entzunak entzun eta ikusiak ikusi ta gero, gaur egun, erri baten eskubideak izkuntzari buruz, eta abar, nok ez al dakiz? Gitxiago uste geinke au abade bategan. Linbo ortan bizi dana ez da gauz erri gidari izateko. Bego eremuan. Eleiz-agintaritza zelan egin be naiko argi dago gaur. Lenen eta aurren, erriagazko serbitza zearo bat da, ainbaten. Erria serbitzeko lenengo legea erriari ezer ez ostutea da. Berea dauanetik ezertxo be ez kendu, ez galdu, ez ito. Eta euskerea gure erriak, pitxi ta balore guztien artean, bereena ta maiteena dau. Ez daukagu, ez, saltzeko. Eta, gitxiago, gizontxo batzuen oiñazpian, guk ezer egin barik, itoten ikusteko.

Zerbait ikusia naz onetan. Gure abade askoren aldetik gaur arteiño, jokabide au ibilli da nagusi erri batzuetan, batez be, erdeldundu diranetan. Abadeak «nazena nazelako», orretan erriari iritxirik eskatu barik, onenbeste meza euskeraz eta onenbeste erderaz ipiñi ditu... Ze arrazoiren bidez? Beste ustelkeri asko alde batera itxirik, lojika onen bidez, au lojikea ba'da. Alde batetik, gure errian erdeldunak eta erdera-zaleak asko ugaritu dira. Bestetik, gure euskalduna be, motroillo-motroillo ez ba'da be, aitzen dabe erderea. Beraz, zer egin argi dago. Euskaldunen asarrea ixiltzeko ipiñi daigun mezatxo bat euskeraz, lenengo ordutxoan, ta gaiñetikoak erderaz. Olan asi ziran antxiña baten gure erdelzaleok eta olantxe jarraitzen dabe gaur... Txalogarria gizonak! Baiña, gauza bat aiztu dozue: erriak berena zer dan, ondo dakiala, Jaunkoari eskerrak; eta esku bategaz berari emoten dautsazuna berak besteagaz ordaintzen dautsula... Augaitik, ixillean, baiña ezezko oso-osoa emon dautso gure egitarauari euskaldun alderdi andi batek.

Onen argibide bat... Erri batera noa ejerzizioak emotera. Euskeraz emotekotan, jakiña. Erriaren aurrera urteteko nengoala ba-diñosta ango abadeak: «Jakin gero ejerzizioak erderaz dirala». «Erderaz! Emen ori egitea pekatu da ba-ta». Berak barriro: «**nire** eleizan erderaz bakarrik egiten da». Eleizkizunak amaitutakoan, elexpean neure erritar bat. Aguretxo bat. Goitik-bera neurtu nindun, gero begi-kimura zorrotz begiratzeko, esanaz: «Zu guri erderaka ta gu zure erderakadak entzuten!». Gero, sorbaldak emonaz: «Zuok ilten zarienean, euskalerriak lur ona emongo dautsue, baiña negar askorik ez».

Onen ondorena: Erritar batzuek, irain ori ta be, miñez, baiña eleizara datoz oraindik, beste batzuek igeska doaz; irugarren batzuek Eleizeari arrika diardue, barruko asarreak baretu eziñik. Kaifasenak egiterik ez dago emen. Bautista'ren esana, bai: Bide okerrak itxi ta zuzenetara etorri. Eta au, biotzen damuz eta ez kokodrilloaren negarrez. Gaba ikus da aurrean, ta guztiz gabetu aurretik, biztu beiz gure argiak... Eleizan ez gara «NI», «GU» baiño. Erri lez alkartzen gara an, eta erritasunean. Au lenengo. Beraz, euskaldun erriari euskeraz.

Erdeldun utsak be bizi dira gure artean. Orrei be eleiz-janaria emon bear, jakiña. Baiña, zelan? Eurak etxekotzat arturik eta euskaldunak arrotz lez, ala bestetarantza? Gure erri-iltzaille izatekotan ez ziran etorriko, ezta? Diñot ba nik. Eta gure errikide izatekotan etorri ba'dira, ba, atxaki barik, errikoitu, bertakotu egin bearko dira, bertako izkuntza ta abar, ikasi ta erabilliaz. Auxe da euren erri barriagaz daukien lenengo eginbearra... Arlo onetan gogo barik ikusten ba'doguz, barritz, euren tamalez, baiña ezin gugandik eder-ikusi andirik itxaron; ezin guk ezer emon, geu geure erri-iltzaille biurtuko giñakez-eta.

Irugarren talde bat be sartzen da salakuntza onetan. Euskaldun jaio, bizi ta autortzen dana. Siñesten dot euren autorra. Zergaitik ez? Baiña, emetik dator nire tamalezko negarra... Orren euskaldun ba'zarie, zelan ikusten zaituedaze, ez banaka, moltsoka baiño, erdel-mezetan, eta au oituraz, euskal-mezai bape begirapenik barik?

Onek azterketa bat eskatzen dau, eta neure buruari dagiotsat: Nik, neure amatxo, ilzorian dagoan amatxo gaixoa, neure arnasaz osatu ta biztu al ba-neu, ukatuko ete neuskio beragandik artutako arnasa au? Edo-ta, amatxo ori illobira eroan, eta ara bota ta gaiñera lurra eralgiten asiko ba'nintzakio, lenbailen azken-arnasa ori egin dagian, zetariko semea nintzake? Ba, orretariko illobi asko ikusten ditudaz nik gure eleiza, ikastetxe, sukalde, jolastoki, lantegi ta bideetan eta, bai, zeregin iguingarri ortan dabizan esku-gaizto asko be... Gizontasun barik «txepezkeria» dariogu.

Eleizeari buruz daragoyun ezkero, gure kristau arduratuen artean ez al da taldetxoren bat egongo tokian-tokiko eleiz-gizonakaz alkar-izketan jarri ta eleiz-barruko arazo au polito-polito konpontzekorik? Orregaz Kontzilioaren asmo bat beteko genduke.

BEOBIDE'TAR JOSE LUIS

AGVR

II URTEA
17 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - GARILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

BAKE TXARRA?

Bakea beti ona dala uste izaten dogu sarritan.

Baiña iñoz entzuten dogu gure baserrietan esakune aztergarri au be: Gure auzokoakaz bake txarra daukagu. Zer esan gura ete dau esakune onek? Ez ete da ona beti bakea? Ez ete dogu esaten «bake santu bat egin dogu»?

Nire ustez esakune orrek sakontasun aundi bat dauka. Bakea txarra izan leiteke eta sarritan izaten da. Eta bere oiñarrietatik ezagutuko dogu.

* * *

Bake onaren oiñarriak ondo ezagunak dira.

Bakea egin baiño len gizonak alkarregaz berbaz aditutea da bearrezkoa. Baten eretxiak, nai ta nai ez, nagusi urtetea ez da bake bidea.

Bake ona egiteko besteak aintzat artzea ta eurai itzaltasuna izatea be bearrezkoa da: «Neu nagusi» edo «neu bakarrik» diñona ez dago bake-bidean.

Bake-egille guztiak, eskubideetan beintzat, bardiñak izatea bakearen oiñarri egizkoa da: iñor ez nagusi edo eskubidedun aberatsa dalako, iñor ez menpean edo agintaritzan onelako edo arelako eretxia daukalako, baltza edo zuria dalako, urliaren seme dalako, katolikua edo protestantea dalako, guda bat irabazi edo galdu egin daulako...

Bakea egiteko egia agirian erabilli bear da eta ez sapokeriz jokatu.

Azkatasuna, al dan neurrian, emon bear da. Beti ezin. Esaterako, gure bide zabaletan azkatasun osoa emongo ba'lebe ezin ibilli izango geintekez. Baiña norberen eretxikoak ez diranak aurrean erabiltea, geiago barik, ez da bake-bidea.

Zuzentasuna, bakea egiteko bearrezkoa. Azkenengo Europa'ko gudea amaitu zanean, nortzuk izan ziran epaikari? Irabazi ebenak; nortzuk epaituak? galdu ebenak. Lotsagarria, benetan, Nurenberg'en egin zan epaikundea. Galdu ebenak irabazi ba'eben beste batzuk epaituko ebezan.

Eta oiñarri oneik argi ipiñi ondoren, orduan bai, bakerako azkenengo oinkadea: maitasuna. Arerioak maitatu bear ei doguz, baiña ez zuzentasuna oiñarri ez dala.

* * *

Bake txarrak be ba daukaz bere oiñarriak.

Nagusikeria, beti norberarena aurrera atera bearra, besteak ezeretzat eukitea, ez da bakerako oiñarri ona.

Bake orrek, talde bateri, Erriari ekarri bear leuskion onurea dakartsonean, bakerako oiñarri txar bat ezarten dogu. Bake ori, egiten ba'da be, ez da ona ta iraunkorra izango. Galtzen dagon taldea laster nekatuko eta ondo egingo dau.

Norkeria da beste oiñarri txar bat. Bide au artu ezkero, ez da gizona aintzat artzen, gizonaren zati bat baiño, edo bere diruа, edo bere jakituria, edo bere sendia.

Zapaltzea, oiñarririk txarrenetarikoa. Zapaldua, bakean ba'dago, bake txarrean dago eta erea daukanean, zapaltziillearen aurka jagiko da.

Agiriko zuzentasuna, batzuetan, indarkeri batek egiña izaten da. Ez da au oiñarri ona.

Ta, azkenez, bildurra ta ikarea ez dira gizonen arterako bake-bideak, oiñarri txarrak dira.

* * *

«Zorionekoak bake-egilleak». Begiratu daigun geure barrura eta benetako bake-egilleak garean ikusi daigun.

Egin daigun bakea geure sendian, geure Errian, geure lantegian, geure Eleizan... Baiña ez gudea irabazita gero egiten dan bakea arerioak azpiratuaz, ez bake txarra.

AGVR



Yalta'n: Gizonak an, Bakeak uts.

JAN-BIDEA TA BIZI-BIDEA

Gizartearen aurrean, bai aoz bai idatziz, gizonaren eskubideak izaten dira eskuarteko gairik aipatuenak, erabillienak. Jaurlaritza edo gobernu, alderdi talde ta gizasemeak euren albisteak zabaltzeko tresnen bidez, eskubide orrein ontasunak goraltzen ditue. Eskubideok ukatzen ez da iñor ausartu, baiña agintaritzan dagozenen artean, bakoitzak norberaren erara tolosten dituz; bere onerako, ez gizona, ez egia uts-utsean aintzakotzat arturik.

Mitotzat artzen diran iizen artean «demokrazia» itza dago; ez du iñork ukatzen, baiña ba-dago agintaritza «demokratiko» batzuetatik besteetara aldea... Gobernu guztiak, itz polit ori, izenburutzat artu dabe; bai ete bitxi nastatuagorik? Egizko demokratziarik ba ete-dago iñun? Ori baietza ba'litz bere, ez dira izen orretako guztiak bardiñak, ezta gitxiagorik bere.

Ez gara sartaldeko demokrazia batzuen aldeko. Adi bidez, Ipar-amerika'koa, ikuzten danez, emen kapitalismoaren indarrak, diruak, agintzen dau. Erri aberatsa, edo obeto esateko laterri aberatsa, baiña... or bere txakurrak ortozik! Arazo galantak ta argibiderik ez; gizon asko zapalduta, narru-gorriak, baltzak, portorrikokoak eta abar; aberats ugari baiña txiroak geiago; bardintasunik eza. Baiña akatz guztion gaiñetik, bai zerbait: bakoitzak siñisten dabena esateko eskubidea ta askatasuna.

Egun oneitan, Gobernu ta izparringien arteko burruka garratza ikusten dogu, Vietman'go jazokeren ixillikoak argitaratzea dala ta ez dala. Norek irabaziko? Lerro oneik idatzikeran ez dakigu, lege gizonen eskuetan azken epaia dago-ta, baiña gitxienez, Ipar-amerika'n gobernuaren edo agintarien pekaturik astunenak bere, sarritan erriaren begien aurrera ateratzen dira, beti ez ba'dira be. Geiegikeri ta indarkeri aundiak izango dira an bere, baiña gizonak izaten du bere buruaren alde begiratzeko erea, geienetan beintzat. Zer jazoko ete-leuskio Elsberg'eri —ixilleko idazki oien zabaltzaille orri— beste laterri baten ba'lego?

Ipar-amerika'ko ta beste sartaldeko demokraziak ta ez danak, antzekoak dira bide orretan. Eta sorkaldeko demokrazia-popularrak? An bere diruak agintzen dau, ekonomiak, naizta diru orren indarra «alderdi bakarreko» aberatsen eskuetan izan, Askatasunik bai? Bai zera! Demokrazia orretako erriak, ain aitatua dan erri-langilleak ez du ezer jakiten. Beste alde batetik, norberaren pentsakerea azaltzeko eskubiderik ez dabe ezagutzen, eta kritikarik txikerrena egiten ausartzen dan gizajoak ba-daki bere egunak amaitzeko tokia zein izango dan. Ez dala orrenbeste? Zer esango ete-dabe, besterik aitatu barik, Errusia'ko iru milloe judutarrek? Euretariko baten aotik au entzun dot: «eta atsedenezko bizimodua ba'dauke, zergaitik aterik zabaldu ez?» Ez dago ez, an bere askatasunik, ez demokraziarik, ez gizonaren eskubiderik onartuko dituan agintaririk. Nun orrenbestekorik? Ez dakit nik iñun edo iñoiz olako agintaritzarik lortuko dan, baiña guk amets ori ez dogu galdu.

Edonon zapaltzen dana Erria, erri-langillea izaten da, naizta toki batzuetan langilleen izenean indarkeria agertu. Ez dago askatasunik bako gizarte barri atsegiñik. Benetako gizarte barri ori, bardinzalea edo sozialistea izango dalakoan nago, ta demokrazia bidezkoa ba'da ez dot uste lortu eziñeko amets uts-utsa danik orrelako agintaritzari itxaropentsu itxarotea.

Oraintzu, Témoignage Chrétien aldizkarian irakurri dogunez, Eugene Descamps jauna, CFDT'en idazkaria dana, bere sindikar kargu ori itzi ta politikan sartzera doa. CFDT, Frantzi'ko bigarren langille-alkartea da. Gitxi gora-beera oneik dira bere iritzi zabalen muin jakingarriak:

1.—Langille-alkarteak indartsuak diranetik, naita nai ez, politikan, alderdien arteko gudan sartzen dira; gizonak ez dauka sindikalista utsa izaterik.

2.—Langille-alkarteen buruak eta politiko talde edo alderdienak ez dabe bardiñak edo gizon bardiñekaz osotuak izan bear.

3.—Gaur, kapitalismoaren trust geienak laterrien gaiñetik zabalduta dagoz; internazionalak dira. Beraz, langilleak bere, laterrien gaiñetiko Alkarte nagusiak sortu bear ditue, burrukea bear dan bezela egiteko; erantzuna emoteko.

4.—Langille bakoitzak, askatasun oso-osoan aukeratu bear dau berari egoki jakon alderdi politikoa, ta batez bere gizarte barri baten billa dabiltzenen artean; kapitalismotik askatasunezko sozialismora joten dabenen artean.

5.—Prantzesa danetik, Alderdi sozialistea aukeratu du, ta talde socialista guztien alkartasuna lortu nai dau; ezkertiar-demokrateren batasuna. Alkartuz, bere ustez, ikeragarrizko indar barri bat sortuko litzake.

6.—Indar barri ori, kapitalismoaren aurkako iraultzaren gidari izango litzake, baiña komunista taldeetetik albora. Ez du indarkerizko agintzarik nai, ez zuririk, ez gorririk.

Prantzi'an ludi guztian bezela, demokratak ondo ezagutzen ditue komunisten azpi-jokoak. Antxiñako CGT ori, sozialistak sortua ta sozialisten eskuan egoan. Komunistak, sindikal ta politiko izatea (euren alderdikoa erik) aldendu egin bear zirala zabalduaz, apurka-apurka, sozialista guztiak alkarte orretako buru-izatetik kendu al izan ebezan. Gero, CGT'a komunista alderdiaren eskuetara jausi zan eta gaur euren oinpean darabille, naizta beste era batera itz egin. Betiko azpi-jana!

Nik, Descamps jaunaren iritziak oso-osorik onartzen ditut, eta uste dot bere erriarentzat, Prantzi'arentzat onuragarria izango dala bere naiak betetzen ba'ditu. Berak, gizazaletasun kristiñau baten ezia dan gizon orrek, Alderdi sozialista bat onartu dau bere ekintzarako, baiña demokrazia bidean dabillena. Zer jazoko ete litzake bere elburuen artean erri-askatasunaren arazoak ba'leukoz? Zelako alderdi edo taldea aukeratuko leuke errizale ta langille bezela? Erantzuna emoteko korapilloaren muiñean sartu bearko; bakoitzak egin bedi. Ni, Intxorta ta Artxanda gorritu eben langilleeri begira egoten naiz.

Gogortasunak eta indarkeriak, gogortasuna dakarre, ta gogorkerian asi baiño lenago ondorenak ondo neurtu bear dira. Neurtze ori ondo egingo ba'litz, zarata gitxiago bai, baiña oiñaze ta alperriko neke gitxiago izango litzakez munduan. Guk beintzat, gizarte bardindua nai dogu, baiña gizona bere eskubideen jabedun, askatasunezko bardintasunean.

ARENAZA'TAR JOSU

ODOLA MERKE

Ipar-ameriketarrak guda usaiñean, joaten diran leku guztietan izkilluz eta gudariz, ez ainbatuteko beste indarregaz laguntza izaten dabe. Eta laterri andien eginkizunak, garaitza askotan, ontzat artzen dira, alperrik guzurrezkoak izan euron egikerak. Eta diñoten au, len eta orain be, begi bien aurrean ikusi dogu. Zetan esan be ez dago.

Len, iparreko Korea'ren aurka ameriketarren guda zitela izan zan. Gaur ostera, Indotxina'ko Ipar-vietnam eta Vietcong'en aurka da. Ta zelan esan ez, beste lurralde batzuren aurka be ba-dala?

Eguzki aldeko guda madarikatu oneik, Francis Spellman, amerikar kardenalak fede aldeko guda benetakoa zirala esan eban, eta amerikatar gudari gaztediantzako egikera jainkotarra. Egia ete? Bai zera, ara eredu edo argibide bat: Len, My Lai deritxoen uri koskorrean, Calley'k, buruzagiak aginduta, 102 atso-aguratxo ta ume gaxoak izan ziran il ebezanak. Orain diñoenetik, John W. Donaldson guda nagusiak aginduta 24 izkillo bako gizon il dabez. Ildako guztiok Egovietnamtarrak izan dira. Eta isillean zenbat olako izango ete-dira. Gatxa da zinistuten egikera oneri guda-deuna deitute ori, alperrik Spellman kardenalak olakorik esan. Oker ete-nago? Egi diran gauzak ez dira aztu bear.

Len be olako fede aldezko gudarik asko ziran munduan, batez ere Europaz aarrean ta Karlomagno'ren aldian. Kristo'ren izenean guda ikurriñak jaso ezpata erpiñetan, eta onetara, baldarkeria ugaritu, ta «imperiosacro-romano» ren izena ezarri Baiña europarrak or dagoz beti, lengo lekuan; lurrez bear ba'da zerbait txikiago... baiña kristotasunez len baiño zerbait zintzoago ta zuzenago.

Geroago be, VII Gregorio doipuruak asmatuta, ta II Urbano'k bizkortuta, esanaz: «Jaungoikoak gura dau», guda irrintzika asi zan Pedro Ermitau uzkurtzalaria, Europa'n bizi ziran guda-jauntxo «feudaleri» Jesusalem'en dagon Kristo'ren illobia azkatutera joateko ezkatzen, maomatarren menpetik kentzeko.

143 urteren barruan, 8 bultzakada egin ebiezan guda bidez. Eta zertarako? Edestiak argitu dabenez, guda arein zertzeladetan, Europa'ko jauntxu kruzaduak zer egin ebien ikusi dogu. Lur areik eurokanatu, ta ondoren, euren artean burruka lotsagarriak sorti... ta Kristo'ren illobi-zerraldoa bertan itxi turkotarren eskuetan, eta azkenez, etxerako bidea artu bakotxak al bean lez.

Zenbat il ete-ziran fede aldeko guda orreitan? Iñork ez daki. Karlomagno'k, europar jauntxo kruzado areik, amerikatar kardenalak eta beste orren antzeko askok be, Kristo ikurrintzat artu ta ba-dakigu zer egin eben eta egiten daben lurralde geienetan: negarra, eriotzea, ta triskantzak eroan, beste «apocalipsis» baten antzera. Eta gero egikera oneri kruzadea deitu. Ta ori ez da egia: *Kepa'ri Kristo'k, ez eutsan ezpatarik erabilten itxi arerioa minduteko.* Bere ikasbidea ta agindua iñor ez erailtzea zan, ta da. Bakea maitasunean.

Alemania'ko Nuremberg deritxoen uri nagosian, ainbat guda iltzale edo gudakriminal urkatu zituen. Ondo ete? ez dakit ba. Ori bai, oindikarren iltzale asko bizi dirala ludi zabalean.

Ikusten dogu gaur be, zenbat eliz-agintari dagozen isillik egia esateko bildurrez. Urkoaren negar eta samiñak ez dautse zeregin andirik emoten eurori. Geienetan, adizkide onak izaten dabez: indardun, izkillodun eta eukitsuetan. Eta diñotan au, ez da nik asmatutako itza, ezpa bere benetako kistar idazle zintzoak esandakoa baiño. Umezurt dira gaur be kristoren jarraitzale onenak.

Gaurko gaztediak begiak zabalduten dauz, egia ala guzurra non dagoan aztertzen. Edonongo gogorkeri ta indarkerien aurka doaz. Mundu obeago baten billa. Baiña ez izkillu ta negarraren bidetik, maitasun eta anaitasunaren sustraiakaz baiño. Oiñarri sakon baten zimaurri onurakorrak lurrean ereinda. Loratuko al dira gazte onein alegiñak! Ea onetara egunen baten, ludi guztiko gizaseme benetakoak esnatu ta adituten diran itzez eta egite onez. Auxe ixango litzake benetako fede-gudea, ta ez besterik.

URKIDI

EUSKERA

A ARTIKULUA DALA-TA MAITASUNAREN KUTXA

Erriak, gure aldean beintzat, artikuluagaz esaten dituan berba asko idazle batzuk artikulu barik idazten ditue. Ba-dakit antxiñako idazle askok olantxe egiten ebena, bat aitatzeko, Axular'ek ere bai.

Ez dakit jokabide ori zuzena dan ala erderaren indarrez jazoten jaken. Dana dala, nire belarrieri (ta niri lez gure alderdiko erri guztiai, esango neuke) arrotz egiten jaken esakera batzuk, idazti ta aldizkarietatik artuta, ementxe ipiñiko ditut, parentesis ( ) artean nik ikasitako eran berba orreik barriro sartuta.

Argituko gaituan norbait agertuko al da!

Ara ondoren esaldi orreik:

«Pake (pakea) lurrean gogo oneko gizonai».

«Alaber ura da aberats (aberatsa) ta boteretsu (boteretsua)».

«Esku laxoak eta alferrak probetasun (probetasuna) dakarke, baña bortitzak eta trabaillariak aberastasun (aberastasuna) biltzen du».

«...lan ori baiño gauza oberik artzeko bagenuen deretxo (deretxoa)». («eskubidea» berbia oraindik erritarra da, ta ez dago zergaitik baztertu; orretarako bai ez dagoala deretxorik!).

«Nobi (nobia) bat bear degu».

«Kondairako lekukotasunari siñeste (siñestea) emateko badira lege jakin batzuk».

«Bakoitzak (Ondarrabi-Irun barrenean bizi diran eskultore ta margolariak) banaka merezi luke gorazarre ta aipamen (aipamena)». (Atzetik «aipamen» berbia ez baleu, «gorazarre» berbiari be artikulua ipiñi bearrean arkituko giñan).

«Tenza, zizela ta gubiaren bitartez eta maillua dantzatuaz arnas (arnasa) damaio bere egikerari».

«Zoriontsu (zoriontsua) tentaldia ondo eroan dagian gizona».

Ez naz gauza kontu au bear dan egokitasunez argitzeko, ezta gitxiago be. Baiña auxe bai esan bear dot, neure eretsien sendogarri: Erderaz predikado eta konplemento direkto izenez ezagutzen diranak euskeraz artikulua eroan bear dabela. Ni ez naz «gizon» «gizona» baiño. Ta nik ez dot «ogi» jaten «ogia» baiño; ta nik bear dodana ez da «ogi» edo «andregai», «ogia» edo «andregaia» baiño. (Beno, andregairik be ez orain). Uste dot ukatu ezin dan euskera lege onen aurrean goian ipiñi dituadan esaldirik gienak lurra joko leukela.

Elizanburu'ren abesti ezagun arek be onetan erakutsi ederrik emoten dau:

Badut andrea, badut semea
alaba ere badut nik.

Olantxe, izenak **a**kin amaituaz, ta ez ortik ziar irakurtzen diran moduko «Badut gogo ta borondate» ta antzekoak.

Erakutsi dogun lez guk goiko esaldi guztietan autura atara doguzan berba guztietan a artikulua ipinten dogu, olantxe ikasi izan dogulako.

Baiña guk be beti ez doguz artikuluagaz jazten berba guztiak.

Ondoren ikusiko doguz ainba erritar esakera, ezetariko muga berben laguntzarik eroan ez da be artikulurik ez daroen izen berbakaz.

«Zoriontsu bizi naiz». «Zoriontsua naiz».

«Koldobika ez da aberatsa baiña aberats bizi da».

«Ezagun da loteria irten jatzuna». «Guztiz ezaguna da loteria irten jakon andrea».

«Gure Sabintxu gizon eginda ikastetxetik etorri jaku». «Orain ez da len zan lako ume biurria, orain gizona da».

«Axe ekaitza, itxasoan, atzo arratsaldean! Dana zuri egoan».

«Gure aitak esaten zuan, Amute, denborarekin dana etxe ta bide izango zala».

«Mundua mundu dan arte ez diot itzik egingo lotasgabe arri».

«Azur ta guzti jan dau».

«GURE AINGERU'k (itxas ontziaren izena zan) andre ta gizon ogetabost ogerleko partilla egin dau». (Arrantzaleen lan sariari emoten jako «partilla» izena, erderazko «reparto» ren antzekoa).

«Ez diru ta ez etxe gelditu naz».

«Zeiñek urten dau alkate?»

«Ez kordel ta ez aingira gelditu giñan».

«Jose gelditu da lantegiko nagusi».

«Abade egiten nazanean mixiñoetara joango naz».

«Etxeak su artu dau».

«Illun dago ta argia biztutera joan bear naz».

«Jantzia andi daukat».

Baiña politena auxe da: batzutan artikulurik bear ez dabenean ipiñi egiten dautsela. Ara idazlan batzutatik artutako esaldi batzuk; nik beintzat euretan a artikuluaren premiñarik ez dot ikusten.

«Euskera batuan idatzia zuzena dan lez».

«Aditza batuaren sariketa».

«Bi berri onak». (Bere esanaia erderaz «Dos buenas noticias zan).

KAMIÑAZPI

Sarri askotan esan eta idatzi ere egin da emakumeak euskeraren galgarri izan dirala. Ta izan ere, egia da. Emakume asko euskeraren arerio gogorrak izan dira-ta. Ama batzuek euskera ezertarako ere ez dala esanaz, seme-alabai erdera baiño ez dautse irakatsi. Beste batzuek euskera ikasketak egiteko eragozpen eta oztopo andia dala siñistuta, euskeratik aldendu dabe euren sendi guztia. Baita emakume gazte askok ere ikusirik aundikiak eta karreradun andra-gizonak erdera egiten dabela, bakarrik erdera mordoilloz jarduzen dabe, euskera obeto jakin arren, arrokeriz eta oitura-modaz. Eta orrela gure errietan euskerak beerakada andia egin dau tamalez.

Egunotan, zorionez, emakume orreik ere itzartuten asi dira. Izan ere, guda-ostean ainbat eta ainbat emakume erdaldun ona etorri dira-ta, jakiñak eta aundikiak ez dirala ikusi bai dabe. Itzartuko al dira guztiak ikusirik gure euskera ederra ta maitagarria dala! Eta ikastaroetarako eragozpen ordez, laguntza dala ikasketak obeto, errezago ta sakonago egiteko.

Emakume batzuek euskeraren galgarri izan dira, baiña or dagoz beste batzuek euskeraren zaintzaile izan diranak. Ainbat eta ainbat ama onek euskera samurra seme-alabatxoen buru-biotzetan sendo ta betiko irantzi ta sakondu dabe. Ta eurai esker or bizi da askoren biotz eta agoetan euskera samur eta eztitsua. Izan ere, amaren izkuntza biotzaren barru-barruan sartzen da eta bizitza guztirako irauten dau. Konturatu beitez euskaldun ama guztiak euren sendiaren biotzetan euskera ereiten.

Baita ezagutzen ditut Bilbo-aldean oso ezagun diran emakume batzuek euskeraren, ta erlijioaren lan goragarria egin dabenak. Ez noa euren izenik emen ipintzera batoren bategaz aztu ez nadin, baiña eurak bai guda-aldean eta guda-ostean lenengo erbestean eta gero emen, eta ordain barik, alegindu dira euskerazko eleizkizunak atontzen, euskerazko liturjia eldu aurretik: bederatziurrenak, gabon-agurtzak, illen lenengo barikuak, eta abar, eurak atontzen ebezan, zigorraren eta oztopoaren bildur gabe. Askoren amorru ta eskerragaz, baiña euskeraganako ta Jaunaganako maitasunak bultza eginda. Eurak euren lanagaz lortu eben euskera ta euskaldunen siñismen argia guda-osteko urte larrietan ez amatatea. Euskal-liturjia eldu zanean or eta emen liturji-liburuak zabaldu, euskerazko mezak, illetak eta abar lortu dabez, bakean ez itzirik eleiz-agintariari eta eleiz-gizonai.

Oore ta txalogarriak emakumeok. Orrelako ama, emakume ta andereiñoak, or emen ba'doguz. Euskera eta Jaungoiko-zaletasunak ez dabe bildurrik eurokaz.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

POZAK ETA KEZKAK

Dirua, dirua, dirua! Zorrak ordaintzeko norberaren erritik urten egin bear... Euskal-aldizkarri baten zuzendaria be, orretara beartu zan. Baiña, erbestean be, ez du lanik aurkitu aurki, zorrak lengo lepoan dagoz-eta.

Demagoji gitxitxuago egingo ba'litz...

* * *

Otxandiano'ko lagun baten eskutitza artu dogu. Asierako bere iritzi zintzoan «epel xamarra» da gure aldizkaria...; gero, «polemika aldetik geiegi joten ete dauan» esanaz jarraitzeko... Nik ezin dodaz «epela» ta «polemikoa» bardindu. Nere ustez, lagun, zuk diñozuzan «sapo-perretxikoak» geiegitxo dira; eta guk perretxikotan jarraitu bearko: itsututa dagozanak itxartzen! Otxandio inguruan bere, perretxiko larregi ete-daukazun nago... ta kontuz, batzuk margo ederdunak be izan leitekez-eta.

* * *

Lengo baten, Alfredo abeslaria ezagutu gendun —orain *kantaria* esan bear ei-da— telebiziñoan. Baiña irratiz bere Love History'ren euskerazko (?) itzulpena entzun gendun egun batzuk lenago. Mutillak, nork egin ete jok itzulpen ori? Ziur nago, gure Erdeltzaindiakoren bateon-batek. Sekula alako erderakazorik! Eta oguztean? Txa, txe, txi, txo, txu... «cha-cha-cha» ren antza abesti orrena.

* * *

Elorrio'n jai aundia Bagilla'ren 27 gnean. Jente asko ta egun zoragarria. Ikastoletako ume pillo ederra pozik. Ba-dakizu, olakoetara danetarikoak joaten dira; eskekuak, listerrak eta noraezean dabizenak be bai. Gero, iturri nagusiko urak be, bere entzutea dau oitu bakoeri buruak arintzen dautseezala.



Olako batek, zigarroa paperakin ixotu bearrean, papera zigarroakin erre ezinda iñarduan. Inguruko mutillen aurrean nabarmentzen-edo.

* * *

Euskaltzaindia lege ta arau larregi emateari zaigu. Askozaz obe litzake gutxiago eman ta errez eta seguroak. Bestela, ez dira ontzat artuko ta batasunera jo bearrean, gero ta naspil aundiagoa.

Orain, puntuazio markak non, noiz eta nola ipiñiren arauak eman nai ditu, lenagoko idazle geienak zeralbiten bidea aitatu gabe. Nun bait, orain arteko guzia gaizki egin zegon, jakiña «abertzaleak egin zuten-eta». Nik uste, berriz, (') ta (—) orrek ongi zeudek zeuden lekuan. Baita zera! «magister prunum» zorrotzen batek lengo guzia kendu bear dau esan du ta kito! Arrazoia? «*simpletasuna ta premiarik eza*». Eta «h» ori zertako sartu arrazoi berorrek bastela agintzen duanean!

* * *

Eibar'en, aurren euskal-mezea isildu egin eben; Arrasate'n arras kendu, ez ete-dozu adizkide, ikusten nudik doazan eta non men-egiten dautsen?

* * *

Datorren illaren lenengotik, Loiola'n andereiñeontzako ikaskizun bear-bearrezkoak. Oitibia ta Lasa jaunak bultzatuak, beste andereiño langille zintzoen nekeak osotua. Igaba-dakizue, an agertu ziran guzti ori apurzeko asmoan, bostpasei aldrebez, egon zan aurten, ta olakorik agertzen ba'da, azpeitarrok, erakutsi egiozue zuen asarrea ta ostu gaiña.

PIPER-ZIRI

«INSTITUT D'ESTUDIS CATALANS»

Aipagarri ta naigarri zaigu, benetan, «Institut d'Estudis Catalans» deritzan katalandarren izkuntz-alkargo onek «OMNIUM CULTURAL» jakintz-bazkunaren babesean katalan izkuntzaren euspen eta zabalkunde alde dagian egintza onuragarria.

Aldi bateko «Orfeó Catalá» ospetsuaren Eres-Jauregian dauka bere izatelekua, katalandarren izkuntz-alkargo entsutetsuak, gela aundi ta idaztegi arrigarriz zoragarriro ornitua.

Katalandar edeslari ospetsu izaniko Prat de la Riva jaunak irazi zuan, 1907' garren urtean, goralgarri zaigun jakintz-alkarte onuratsu au.

Millaka ditu, bazkideak, eta ez nolanaikoak: izkuntzalari jakintsuak, idazle ospetsuak, olerkari bikañak, antzerkigille txalogarriak, ereslari entsutetsuak, nobelagillerik gorengoenetakoak eta abar eta abar; eta guzi oietaz gain, dirudun laguntzaille askoak, katalan-kultura-lantzen saiatzen diranei beren egintza, esku-zabalez ordaintzen dienak, katalandarren jakintz-ospeak **goi-goian iraun dezan.**

Izkuntzlari edo eletari jakintsutan, or ditugu Pompeu Fabra izkuntzlari jakitunetarikoa zanaren jarraitzalle saiatuak diran: Aramon Serra, Capamani, Fuster, Mall, Caracuberta eta Roda jaunak.

Idazle sonatuetan: Castellet, Cruyeles, Pocel, Cuxar Bartoli ta abar.

Eleberri edo nobelagilletan: entsutetsuenak diranak: Espina, Foch, Tedrala, Merco, Roderera, —«BLACA DE DIAMANT»—en egillea, eta abar.

Olerkari bikañetan: Corner, Ferreter, Frix eta Oliver.

Antzerkigilletan: Joan Capri, danen gaindikoa.

Laguntzalle esku-zabal diranetan: Corulla, Cruyeles, Escalas, Abadal, Arruga eta Estrada jaunak, beste batzuen artean.

Jakiña, olako lankide eta laguntzaille ditun izkuntz-alkargoak, aberatsa, indartsua **ta** ospetsua **izan bear.**

Orra, zer nolatako mailla goitsuraiño, izkuntza-arloan, katalandarrak iritxi zaizkigun, beren Pompeu Fabra'ren ekintza eta irakatsien bidez.

Gu, euskaldunok ere, beste orrenbeste lortzen saiatu gaitezen, katalandarrak POMPEU FABRA irakasliaren idaz-arauz lantzen jokatu duten bezela, guk ere AZKUE AUNDIA'k Bereziturik utzi zigun zizkidatziz ¡ortografiz¡ EUSKERAZ IDAZTEN jarraituz, idaz-arau-berriak sortzen **ibili gabe, euskaldunak euskal-irakurle biurtu arte.**

ZETELA

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

ERRI - KULTURA

Gizarte batek, erri egiten danean, era bereko bizikerea sortzen dau. Euskaldunon gizartean euskal-bizikera bat sortu dogu, gizaldietan zear. Bizikera orretan gizonaren alderdi guztiak sartzen dira: izkuntza, siñiskerak, artu-emonak edertia, bearra, olgetak eta abar. Bizikera ori ez da bein betiko egiten. Apurka apurka landu dogu, gure antziñako asabagandik asi-ta. Lantze au ez da amaitu, aurrera doa, egokiagotuz.

Erri-bizitza oneri «kultura» deituko dautsot. Iz onek latin izkuntzan dauko jatorria: landu *tzan nai dau. Artertu ta sakondu dagigun apurtxo bat.*

Gizona era askotako eragozpenakaz aurkitu izan da bere bizitzan, eta garai bakoitzean, batera edo bestera erantzun egin bear, erabaki bat artu bear, eragozpen orrein aurrean, gizon lez bizi izateko. Urteak joatean, geroago ta egokiagoa izan da erantzuna.

Eragozpenak irutan zatitu geinkez: Ludia, Gizartea ta Ezkutuko indarrak. Ludiak dakarsguzan eragozpenak lanagaz gaiñeztuten doguz, bizi-bidea berion aurkituaz. Gure erriak itxasoan, lurrean eta mendietan diardu bearrean.

Gizarteak be ainbat eragozpen agertzen dauskuz. Gizartearen barruan «gogoa daukatelako egiten dot» esanda, ezin daiteke bizi. Azkatasuna ezoa daukagu gura doguna egiteko, zentzundun gurean ezkero, baiña besteen azkatasuna zapaldu barik! Onetarako, guztion bizitza pozgarriagoa izan daiten, gizartea eratu, joskera bat emon, gertau egin bear da. Gure erriak aukeratu ta artu izan dau, eragozpen onentzako be, erabagi bat: Gizarte-arazoak, aberrialkartearen bidez gaiñeztu izan dauz oraintzurarte, aretxaren kerizpea batasun izugarriizat artuta.

Ezkutuko indarrak, ulertu eziñak, azalpenik bako gauzak dira. Gizon eta erri bakoitzak, jakingureak zirikatuta, argitu gura izan dauz ezkutuko indarrok. Gure erriak be, bere erara, azalpenen bat emon egin bear; sortu izan jakozan itauneri erantzun egin bear. Eragozpen sakonak agertu jakoz:

Udabarrian zer dala-ta loratzen dira zelaiak?
Eguzki argitsua ezkutatzean, zergaitik gau bildurgarria ondoren?
Bizi izateak iltea dakar eta gero zer...?

Itaun onein erantzunak benetakoak izan dira bere garaian. Gaur egunean azalpen argiagoak doguzalako, mitotzat artzen doguz gure aurretikoak azalpentzat eukeezan erantzunak. Mitoa ez da ba ipuiña, ezta guzurra be, ulertu ezin diran gauzen azalpena baiño. Gaur, jakituriaren aurrerapenakaz, azalpen egokiagoak aurkitzen doguz, baiña egokitasun ori goituaz joango da. Zelan ulertu ebazan gure erriak, ezkutuko indar orreik, Xtoren irakatsiak ezarri aurretik?

Aundiz-aundi esango dot: Euskaldunak, LURREAN aurkitu ebazan erantzunik geienak. Lurra danaren ama zan, bizia, amairik-bakoa, aberatsa; gauzarik atsegingarrienak barruan eukazana. Eguzkiak Lurretik urteten eban eta Lurrean sartu. Marik atx-zuloetatik urteten eban azalera. Lurra zan illen eta bizien lekua; biziak azalean eta illak barruan. Oneik, gabaz urteten eben, euren etxeetara agertuaz.

Azalpen onen barruan edo sustarrean, siñiskera asko dagoz, baiña larregi luzatuko naz.

Jokabide bat artukeran, gogoan euki bear dogu erri «kulturea»; sakon jokatzeko ta erriaren geroa daukan susterretik ez ateratzeko!

EGUZKI

BASAURITARRAK

Nora goaz? Ori da egingo genduken galderea, gure erri ontan dagozan gauza askoren giroa ikusita. Orain urte batzuk, jakintza gaietan urrezko urte zoriontsuak ziran, baiña ezizate bat legez susmatzen genduzan orreik, aldendu dira izate lez, zergaitik ori?

Lenago be zerbait azaldu gendunez, esan leiteke, erreztasun larregigaz aintzat artzen dirala atzerritik sartutako gogogai ta oitura kaltegarriak, jatorrizkoen artean ainbeste kalte egiten dabenak, ta batez bere, gaztediaren artean. Esate baterako, jai-areto, akeitetxe, baita ernan ingurututa aurkitzen diran edatetxe batzun bidez be, ez dalako orrein jarduera gizabide argikoa.

Gazte asko doa etxe orreitara obenak lilluratuta eta orren «gozotasunak» atzipetuta, astiro edo lasterka, euren nagusi lizunkeria ta obena egiteko. Nor da eginkizun nekegarri orrein errudun?

Aldi ontan dana da aldakorra, zoria meaztua dago. Itxaropen pixka bat izan genduanok bide-gabe lez gagoz, naita galdu ez gure ametsak. Zergaitik ez da piztuten eta laguntzen euzko erri-jakintza goratze bateri? Bardin, jakintzazko itzaldi, ikaste-biltoki, idaztitegi ta abarri, ainbeste ongarri gaztediari egingo leuskeenei? Bestetik, baietsiten ditue, ikusten dogunez, gero osatuterik izango ez daben kaltegarrikeriak.

Ituna da benetan, giza-bideagaz asarrez dagozan mitoak zinean emoten dabezanean, areto orreik baterik ikustea. Bestera, ikuski ikusgarriren batzuk emoten diranean, utsik izaten dira. «Cine Social» en emoten ziran «Cine-Forum» esate yaken saio batzuk, naiko ezigarri ziran, baiña areik be aldendu ziran aspaldi. Basauri'ko abesbatzak noiz eskiñiko ete-dauskuz barriz, danok oituta geunkezan abesti goralgarri areik? Areik bai zirala abesti txukunak eta ondo abestuak!

Ondo litzake noizen-bein, gure barneari adikuneren bat egitea, gero, itxi alde batera nagikeriak eta ortzirantz begiratuz, alaitasunez jarraitzeko egizko jakintzaz asetu euzko arloan.

Gorengo maillako euskel-jai bat be errian ikusteko naian gagoz. Ea aurten zer egiten dauskuen bertoko «taldeak» —Las Cuadrillas— ek, ori antolatzea euren bearkunea dalakoan gagoz-ta, baiña euzko kutsurik ez daben bazkunekaz nastatu barik. Pausti Deuna'ren erriko jai nagusiak oraindik urrun dagozan arren, ondo litzake astiro-astiro, gertatuten joatea, ez da ba gizona «ardaoz» bakarrik bizi; jaiak, jolasak eta alaitasuna be bear dau gogotsu biziko ba'da, baiña benetako alaitasuna gero, naste bakoa, garbia, gure asabena izan zana lakoa; euzko girokoa.

KOLDO

ASIER LOROÑO



Larrabetzu'n jaio zan, 1955'gngo Jorrailarren 28'an. Auspolari ospetsu ta irakasle ezaguna dan Loroño'tar Josu'ren semea. Auspo ta armoni ikasketetan diardu, ta piano-joketaren zazpigarren urtean; bitartean batxillerra egiten —seigarren ta errebalida maillan.

Eresaldi ugari emon dauz, baita Bizkai'ko Bakidekiñan Alkarteko bat lez beste joaldi asko bere. Alkarte onen iraslea ta zuzendaria Josu bere aita da.

Aurretik Alsasua'n, Leterriko leiaketan, Asier'ek bigarren saria irabaztean, ederto erakutsi euskun bere egokitasuna ta gogoigoiko almena auspolaritza ederti eragingarri onetan. Orain, joan dan illean. Portugal'eko Caldas de Reinha'n jokatu zan Iberia'ko norgeiagoan, lenengo saria lortu dau gazteen maillan.

Gaztetxoa izan arren —amasei urte besterik ez— garbi erakutsi dausku ba-dala zerbait eta ba-dabela ertilaritzarako esku ona.

Eta, datorran Iraillean, an joago da J. l., Yugoslabi'ko Pola urira, Ludi'ko auspo txapelketan jokatzera, ta ziur gagoz, gure Euskalerriaren ta Bizkaia'ren izenak barriz be ludikoen artean gain-gaiñean jarriko dauskuzela.

AKOAK

OBA'ko NESKATILLAK

Oraingoan neska batzui buruz idatzi gura dot.

Joan dan domeka baten Dima'ko jaiak izan ziran, eta gu erri orretara joan gintzazan. Ez zan egon gauza aundirik, baiña egoan apur ori gustatu jakun. Pelota-joko bat izan zan Zeanuri'ko gazte bik Dima'koen aurka eta beti lez Zeanuri txapeldun gelditu zan, estualdi aundiak igarota.

Joko-aldi orretan neska polit batzuk egon ziran eta begia bota geuntsen. Pelota-aldia amaitukeran, taberna batzuk arakatu genduzan eta onelan neska talde a aurkitu gendun: Oba'koak ziran. Eurakaz berbaz gengozala, geroago ta geiago be etozan eta gu eurakaz pozik egon giñean. Ze neskatilla politak eta maitagarriak diran Obakoak!

Ezin leiteke esan Dima'koak diranik be: euren sinpatitasunaz eta euren arpegi alaiaz Bizkai'ko neskarik politenak dira, benetan. Euren izenak be esango neukez, baiña ez da bear. Oba'ko ura ona da, baiña bertako neskak obeak.

Onak dirala esan dodan lez, beste au be esan bearrekoa da: Oba'ko auzouneak Arratia'ko ekipoari neska on bi emon dautsozala: bata Rejas'tar Inmaculada «PELE» eta onen aiztea bestea. (Orrelakoak izan, neskatxuok, ia ekipo ori gora jasoten dozuen).

Orrelan be, guztiok jarraitu zareen lakoak izaten eta mutillak ez jatzuez ondotik kenduko.

ASTONDOA'TAR J.

NUNDIK NORAKOA

VII.—OLGETAN-BENETAN

Asi giñan lenengotatik ikasten gogotik. Egunean egunean latin ordu bi eskolan eta beste bi ikas-tokian. Orrez gaiñera beste ikasgai oiturazkoak. Erdera, matematikak, erlijioa ta abar. Egunean egunean aldi batean jimnasia, goizaldean, naiz negu naiz uda. Gogoratzen naz zelako larri-aldiak igarotzen genduzan negu miñean. Geienetan Estonba'tar Imanol apaiza, irundarra, izaten genduan zuzendari. Besteetan Duo'tar Santiago, mundakarra. Beste euskaldun batzuek ere ba-ziran, gero azalduko ditudanak. Erdaldun batzuek ere bai, ango apaiz nagusia bat.

Abadegaien artean bizkaitarrak, euskal-errietakoak eta industri-errietakoak erdeldun utsutsak. Eurak ez dabe onartu nai izaten, baiña nik esango neuke: utsak eta utsituak, zer edo zeren paltaz. Gero orrein txanda... Arabarrak ere ba-ziran... utsituak eta uts-utsak!

Aterpe-moduko bat egoan eta an pelotan aritzen ziran eta giñan batzuk. Beste batzuk ostiko-jokoan. Eta gaiñera mutillak eta mutillentzako asmatzen diran noizean beingo jolasak. Eleizatxoan guztiok naste, lenengo, bigarren ta irugarren ikastarokoak. Jantokian kursoka banantzen ginduezan.

Ni leio-baten ondoan nengoan beste bost lagunekin. Bat Garay zala gogoratzen naz. Ereño'koa. Aspaldi itxi eutson abade-ikasteari ta ez dakit zer izango dan gaur bere bizitzaz. Alako batean Fatima'ko Andra Maria ekarri eben erririk erri Bizkaia'n eta orduan Lemoa'ko artziprestadura agertzea egokitu yakon. Joan giñan danok ango tranbia ospetsuan eta erriko enparantzan baste leku askotakoekin batu, goiz-goizean. Ez dakit nor zan eta bizi danik ere ez. Baiña grazi egin eustan ango abadeburuak onelakotsuak esaten: confesau, comulgau eta errosarioa errezau (nik artean ez nekian euskerarik geiago); gero zerbait esan eban erderaz ere bai. Itzala izan zan. Andik gerora ere geienak gogoratzen eben alako itzaldia jolaserako gogoa ebenean: milagros, Lourdes, milagros, Fatima; lo mejor que tengamos para ella!

Beste batean Bilbo'ra ekarri ginduezan «Rayos X» era. Etxerakoan bidean, Alzola'tar Aurelio apaiz irakasleak gaztaiñak erosi ta ikusi-makusika etorri giñan bide-zati on batean: b'gaz asi ta o'gaz amaitu. Ta nik izabazi: «bujero» zan-eta.

Beste gure irakasle bat Ibañez'tar Andres izan zan, egun gutxirako, baiña. Ez datik nora joiala ikasketak egitera ta Anda'tar Antonio, arabarra bera ere, ekarri euskuen ille bi baiño len.

Noizean bein etxekoen ikustaldia. Ta aldian aldiz etxekoei eskutitza. Nere bizitza guztian izerdi lodiagorik ez dot bota, etxera idaz orduan baiño. Dana esan bear! Ta nik neure barruan ausnartzeko zer?

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

Boutique

Cearra

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tendería, 15 eta 16

Gizon eta emakumeentzat jantziak

KONTU KONTARI

ALKAR-IZKETAN V

EUSKELZALETASUNA

—Gaurko gaya, Anton, euskeldunon biotza nasaitzekoa dok. Gero ta euskerazko idazti geyago, aldizkariak gai guztietzaz euskeraz, Kili-Kili'n **bidez ainbeste milla umek Euskera ikastea pozgarria dok izan be.**

—Ori egia dok baiña, baita be bazter guztietan gero te erdera geyago entzuten dokala, ta ori euskelzale burua egiten yaben artean be bai...

—Orixe nik aitu ezin yoadana; euskelzaleak ugaritu ta euskerea urritu. Yateko gauzea ba'litzok aitzekoa litzakek, zenbat eta geyago yan gitxiago gelditzea, baiña izkuntzeagaz besterantza gertatzen dok: zenbat eta geyago erabilli ugariago egitea. Eta orixe ez yoat ikusten.

—Euskera zaletasuna biotzean sustraitua dokanean, biotzean yagoanak agotik errez urtetan yok eta, euskera ugariago entzungo litzakek, baiña zaletasun ori miñekoa bakarrik dokanean axeak eroaten yok. Eta olango geyegi ikusten dok, tamalez!

—Zaletasunak izan be, era askotakoak izaten dozak. Batzuen zaletasuna tamalezkoa izaten dok. Euskera ez dakiela-ta tamal **andia agertzen yabek, baiña ikasteko egundo be ezer ez yabek egiten. Ugari dozak baita, euren umeai euskelizena ipinteko su ta gar yokatzen yabenak, ta gero, gurasoak euskeldunak izan arren, Nongoa zara? itanduta «no sé baskuenze» erantzuten dabenak, ta gero, cómo te llamas? itanduta, «Garbiñe» erantzuten dabenak. Beste batzuk apur bat ikasten yabek baiña urrin yoan barik. Ba-dozak, orratio, euskerea, ikasi, ekin eta txukundu, garbitu ta zabaltzen alegintzen diranak.**

—Ni gauza batek arrituten nayok, euskera ez yakitearen ain tamal andia, agertzen yaben orreik tamalez ez iltea... Ikasteko benetan gura izatea dok naikoa ...baiña orixe latza!... Bakik zer gertatzen dokan. Euskera yakin arren, askok erdera erabiliten yabek, euskera sakelean erabilten dokan erloyu edo orduarian antzera erabilten yabelako, ze ordu dan yakiteko, besterantza eginbearrean. Beste izkuntzak sakelean erabilli, bear danerako, ta euskera beti agoan. Ostean oin gertatzen dokana: Euskera galdu dan tokian il da, ta galdu ez dan tokian atzerantza ...Eta orren azkena edozeiñek yakik...

—Tamalgarria izango litzakek Europa'ko izkuntzarik zarrena, arerioen indarkeriz ta euskeldunen zabarkeriz ondatzea.

—Nik ez yoat uste ori yazoko dokanik, len aitatu yoadan lez, gexorik egon arren, euskerea osatzeko alegiñak egiten osagille asko lanean yabizek-eta.

—Osagilleak diñok? Nik uste yoat euskerearen osagille artean «sasi-osagille» asko agertu dozakala, eta bakik, askon artean... osatu bearrean eztabaidan astia galdu ta gexoa iltea yaso leitekek.

—Eta ori asmorik onenagaz yokatuta be gertatzen dok.

—Bai, ori be bai batzuetan. Eta olango yazokun batzuk gomutatzen nok. Baiña gaur berandu egin yakuk eta iurrengoan esango daustat.

—Urrengorarte ba, agur mutil.

—Agur eta ondo ibilli.

URIGOITIA

IÑAKI ZENBORAIN

Adizkide aundiak izan giñan Iñaki Zenborain'en aita eta biok. «Osaba» esaten daust neri Iñaki'k.

Oraingo euskal olerkari gazte bat da Iñaki Zenborain.

Gure gerratean il zan Zenborain'en aitaita. Eriotza gogorra euki eban gixajoak. Oso gogorra.

Berbetako gogoagaz etorri jata gaur Iñaki.

Zinera joan dala arratsaldean aspaldiko partez. *Zibago* osagillean filma ikusi dabela.

Samurtuta ekarri dau biotza.

—Nik be orren antzeko zer edo zer idatzi egin bear dot, «Osaba». Bai, idatzi egin bear dot.

Zer egin bear daben. Ori galdetu daust.

Zintzotasunik aundienean esateko berak, esan dautzat. Biotz barruan ez gordetako ezer. Jator jokatzeko.

Urkiola ganera joatekotan gelditu da.

—Joan adi ango mendietara, bai. An il zuan aitaita. Andik ikusiko dazak mendi-ibarrak. Biotzzabal jokatu egik beti, idazte orduan. Eure buruaren jabe izan adi, eta iñoren-iñoren be morroi ez.

Ez dakit zer egingo daben. Zibago'ren antzeko gai bat artzea gura dau. Euskal Zibago bat-edo.

ÑAPUR-ZARRA

EUSKAL SUKALDARITZA

(La Cocina Vasca)

Gazteleraz

Idazlea: Ana Maria Calera

Itzaurre ta azterketea: J. M. Busca Isusi


Argazki oiñak: Miguel Angel Astiz

Zuzendari: J. M. Martín de Retana

Luditarreri jaten erakusteko euskaldunok izan ei-gara irakaslerik onenak, baita iñor ausartzen ez zan jangaia be ederto apaindu ta atzamarrak miazkatzeraiño egosi: abarketa antza daben makaillaua, ugal-baltz itxurako txipiroiak, bizioen urreko aingira zeiak... zuza-gibelurdin, tripaki, marraskillo, arroz bako odoloste ta bildots-txanplaiñak aztu barik.

Emen, idazlan onetan daukazuz danak edo geieñak, jakingarrienak eta senarra etxean lotzeko egokienak. Ba-dakizu, biotzetik maiteko zauz, urdailletik goraldu ta ao-zapaitik edozein arrain bai litz lotu, lotuta baiña pozik.

Gero, udaldean, zeu, emakume maratz, aurtxoak artuta itxasora edo basora igesi zoazanean, ipiñi egoizu idazti au senarraren aukeran, ta eguerdietan, barriz lanera joan bearragaitik, jatetxeren baten «errodriguez» izaten ba'da be, illuntzean, etxean bere apariketan jolastuko da, ta ordu-txarretan etxeratzeko aukerea kenduko dautsazu. Balitzake neguan, neskame barik edo au igandeetan igesik doanean, zure senarrak, udan



ikasiak erakutsi gurarik, illuntziko aparia be gertatzea. Ez, ez da edozelangoa idazti eder au. Eskatu gura ba'dozu:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'ri
Apartado 41 F. D., Bilbao
edo edozein idazti-salketa etxean.

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik

Illunabar bateko ego itzaltsuek, gure Agiñalde'ko txoko maitagarria laztan illunekaz estaltzen eben. Gure basetxeko atadian, eskuetan aizkora erabillela, etxekoyaunaren irudi txairoan aspergabe begiztatzen neban, aizkoraren sorbatz zorrotzak pago-enbor bateko mamiñean odolbako zauri izugarria egiten eutsola. Aizkorak egurra yoten eban bakoitzean, ezpalak non-nai sakabanatzen ziran, illuntzea ausiki naiean bezela.

Alako batean, etxetik urbil, etxekoandrearen irudi liraiña agertu zan, erritik etorrela. Nabari zan erosketan ibilli izan zala. Emaztea ikustean, lanari eten egiñaz etxekoyaunak irriparrez itaundu eutson:

—Dirudienez, itsulapikoa ustu daustazu gaurko ontan. Pozik al zara?

Etxekoandreak ekarrazan pardelak lurrean itzi, tar senargana bere begi bardingabeak zuzendu ebazan. Illunabar itzaltsugaitik izango ete...? Nik ez dakit baiñan etxekoandrearen begi ederrek alako itxura ituna erakusela iruditu yatan, alabaiñan itz egiten asi zanean, oartu nintzan benetan naigabetua aurkitzen zala.

—Ez Mikel, ez nago pozik. Koipetxu'nean erosketa amaitzeko zorian nintzala, atso miñ gaizto batzuk nire ondoan mar-mar asi dira... ba-dakizu nortzueri buruz ari nazan... betikoak, iñoren narrua kentzeko beti gerturik dagozanak. Andik leenbaitleen igës egiten nai izan dot, baiñan Koipetxu nire kontua ataraten ari zan eta itxaron bitartean, nai ta ez, areik iñoena entzun bear izan dot. Mikel... Iñarratza'ko Matxalen gaixoari buruz ziarduen; atso ganorabakoa dala... gure erriko lotsa dan sorgin ori aspalditik edateari emona dala... eleizean sartzen ez litzakela itzi bear eta olakoak...

—Atso madarikatuak! —oiu egin eban etxekoyaunak aizkora-kirten ingurutik eskuak estuataz—. Ez al dabe zentzunbako orreik besterik egiteko. Iñarratza'ko Matxalen gaixoaren izen ona zikundu ta iraundu baiño? Atso txaldan oietarikoen artean ez da iñor Matxalen gaixoaren oiñatzak mun egiteko duin danik.

Illunabarko itzaletan ezin negikean gure etxekoyaunaren aurpegia ondo ikuzi. Ziur naz baiñan, aren itxurak berebiziko asarrea erakutsi bearko ebala. Itz gitxiko gizasemea, gure etxekoyauna bere buruarekin eta enparauarekin, pakean beti iraun oi eban. Gitxitan asarratzen zan, baiñan zerbaitek mintzen ebanean, odola irakiten, benetako asarrea beretzaz yabetzen zan.

Gero, senar-emazteak etxean sartu ziran, Matxalen gaixoatzaz mintzatzen ari zirala. Laister gau-asperen ixillak izarrak iratzarri zituan, eguzkiaren eriotza begi dar-dartsuez beila egiteko ta malko meez belardiak intzatu egiezan.

Gau artan, oitutako sasian kokaturik loaren besarkada atsedengarria itxaroten nebala, bein eta barriz nire buruari itauntzen neutson, nor izango ete zan etxekoek ainbeste ederresten eben Iñarratza'ko Matxalen gaixoa, ta loak artu nengian baiño leen, nire buruari zin egin neutson alegiñak egingo neukezazala, Iñarratza'n gertaturikoa yakiteko.

* * *

Amets baizen ederra, arratsalde artan Iñarratza'rako bidetik neska eder-eder bat yoian. Gure araneko lore yaukala zan, maitemiñezko irazekiak ainbeste mutillengan iratzartzen ebazan baserriko maitagarria. Bere adats gaztainkara eguzkiaren ukitze epelaz urrezko gar dizdiratsu biurtzen zan, eta masail leunek gaztetasunaren bizitza erakusen. Baiñan arratsalde artan, aboga goxo mardula ezin eikean irri-parrik egin, eta begi aundi argitsuek bideko azkenengo biurgunean yosiak ziran, alako naigabezko itxuraz. Laister elduko litzake Iñarratza'ra, bere neba bizi zan basetxera.

Egun batzuk ziran bere ezkon-aizpa il zanetik, bost seme-alaba txiki-txikiak itzirik. Amabako kabia lur jota egoan eta ondapena ta zalaparta non-nai nagusiak ziran. Etsia, Iñarratza'ko etxekoyauna araneko beste aldean bizi zan bere arreba matxalen dei egin eban etxeko buruz pidea ezar eikean.

Olan ba illuntze artan, Matxalen, ibarreko lorea, Iñarratza'ko atadia zearkatu eban. Andik zenbait egunen buruan, etxea txukun-txukun agertzen zan; aurrak garbiak eta pakean non-nai. Bost loba ziran: lau mutil eta Mirentxu, bere biotzeko kutuna, urte biko seintxua.

Leenbiziko gauean, mutillak oeratu ondorren. Mirentxu oean sartu nai izan eban, baiñan onek ezetz eta ezetz beragan besarkatuta, ez eban Matxalen'gandik baztertua izan nai. Ta eban beste biderik, gau artako zeregiñak amaitu Mirentxu besoetan artuta. Gero, umea lotan asi, ta berarekin besarkatuta oeratu zan.

Matxalen Iñarratza'ra etorria zan egun batzuetarako soillik, ango zalaparta zuzentzeko, bere ezkon-aizpa zanaren iseko zaar bat etorri arte.

Isekoa noizbait eldu zan. Azkatasun eta era berean naigabezko oarpenaz, Matxalen bere etxera biurtzeko yantzi zan, eta gero iraduz bai'litzan, barruko naigabea nagusitzeko noski, lobeeri mosu arin bana emon eutsen, agurreko itzik esateko gai ez zala. Alabaiñan ozta-ozta etxetik urtenda, oiu larri batek bidean yosita itzi eban. Etsipenezko deadarrak yaulki zitzaizkiola, mara-mara eriozan malkoak bere aurpegiñoa urtatuaz, Mirentxu laztana besoak zabalik ariñeketan etorkion. Matxalen gaixoak besarkada batez bere kutuna artu eban... eta gero bere gauzak baturik, etxera itzuli zan.

Eta olan, Matxalen gure araneko lore yaukal, ederra, Iñarratza'n betiko geratu zan, etorri aundiko bizitz bateri uko egiten ebala.

Ixillezko egaketaz Iñarratza'ko pakean, urteen yarraigoa aurrera yoian, eta Matxalen'en edertasun bardingabea ontzi bakarti batean datzan lore aaztua bezelakoa zan. Lau mutillen erriko ikastaroa amaituta, batzuk Bilbo'n eta besteak Atxandi'ko metalgintzan lanean ari ziran, Iñarratza'ko lurrak urriak bait-ziran eta etxekoyauna naikoa zan etxalde ta abelgorri zaintzeko. Onezaz gaiñera, mutillek etxerako zaletasun gitxi erakusen, eta bana-banaka ezkondu ziran jaiotetxea betiko itziaz. Urrutiratze oneik lau zauri Matxalen'en biotzean ezarri eutsoezan benetan maite izan zituelako umezurtu ziranetik. Ain txiki ta maitekorrak ziran arratsalde artan leenengo aldiz Iñarratza'ra eldu zanean...!

Etxean beraz, etxekoyauna, Matxalen eta Mirentxu soillik geratu ziran. Bitartean, Mirentxu mendi-lore usaintsu bezela azten zan. Arrigarria benetan isekoarekin erakusan bardintasuna. Intz-tanto bi eguzki-printzen pean ñir-ñirka zirudien, bateri dizdir biziagoak eriozala gaztea zalako.

Etxekoyaunak Mirentxu begi-niniak baiño geiago maite eban, eta alabak amasei urte zituela, Atxandi'ko lekaimetxe batean sartu eban, andereiño baten aziera izan egian. Egunen erriko enparantzara yeixten zan Atxandi'rako berebilla artzeko ta arratsaldean etxera, bueltan belarri ikasketan yardun ondoren. Urte batzuk olan igaro ziran, eta usterik gitxienean, etxekoyauna gaixotu ta tximist batek yota bezela, il zan.

Bere nebaren eriotzaz, barriz beste zauri aundi bat Matxalen'en biotzean egin zan, ez ordudanik are geiago bere maitasun osoa lobagan purpuilluka ixuri yakon. Ez luke maitegarri izan, bere alaba izango ba'litzakean.

Zerbait egiteko ikastetxean sortuko ziran lobaren eralketak ordaintzeko, ta zalantzan egon barik, basetxeko lanari gizon baten kemenaz ekin eutson. Matxalen'en irudi liraiña, goiko atzetik sarri ikusten zan, bere txairotasuna konkortzen, aurpegiaren leuntasuna zimeltzen eta adatsaren dizdira moteltzen yakozan bitartean.

(Jarraitzeko) AGIÑALDE'KO TXEPETXA



KIROLAK

TXIRRINDUKETA AROA

Gizon ikasi-jakintsuakin jakintza-zaleak aztuten ez diran antzera, kiroldar jator batzukaz be bardin gozoten da; kirol-zaleen gogoan aurkitzen dira, batez bere kiroldar orrein jokabidea kementsua izan ba'da, ta ospetsua izan ba'da ainbat eta geiago. Onetariko bat dogu Loroño'tar Josu, Larrabetzu'ko txirrindularia, alaitasunik andienak kirol-zaleeri emondako txirrindulari ospetsua. Beraz, nor bera baiño egokiagorik eusko txirrindularitzaz zerbait esateko? Ortarako zuzendu giñan berak Bilbo'ko Errekalde Zumardian daukan ardaotegi-jatetxe apaiñera, ta oitura daben lez, alai ta ondo artu ginduzanez, asi giñan itaun-eranzunetan:

—«Tokaio» adizkidea, AGUR'erako zerbait esango daustazulakoan nator zuganaiño, ezagutzen dozu aldizkari au?

—Bai ezagutzen dot euzkerazko izparringi eder au, ta itandu nai dozuna pozik erantzungo dautzut, bertan idatziteko ba'da; sarritan irakurten dot.

—Eneban gitxiagorik itxaroten zulako euskeldun jator batengandik. Zutaz, Josu, asko idatzi leiteke ta idatzi dabe ni baiño ikasiagoak gaiñera. Beraz, gaur, zugaitik baiño, beste batzukaitik esaten daustazuna izango da geiago idatziko doguna. Zenbat urtean izan zara lasterkari?

—Ogetabitan, amabost neukazenetik asita.

—Zure lasterketa aldian orretariko ainbat irabazi zenduan, poztasunik andienak emon eutzuezanak, zeintzuk?

—Irabaztea beti izaten da atsegingarri, baiña poztasunik andienak emon eustezanak, 1953'gngo Frantze'ri biran mendietako erregetza irabaztea, Espaiñia'koan txapela irabaztea, beste Frantze'ri bira baten, erdi-bakarrik nintzala bostkarren egitea... baiña jasoten doguzan tamal-aldiak eta samiñak ez dira txikerrak izaten.

—Lasterketeri itxi zeutsanik ezkero, ba-zabiltz txirrindutzan edo arduratuten zara kirol orretaz?

—Bai, egunik geienetan ibilten naiz tramankulu orretan, benetan bere zalea naz-ta. Arduratu barriz, zetan esan bez, asko. Lasterketa geienak ikusten dodaz edo irakurri kirol orretaz idatziten dan geiena.

—Orretara, zelan ikusten dozu txirrindularitza euzkotarren artean?

—Zaletasun andia dago emen, ta ori dala bide, ainbat lasterkari urten da Euskalerri ontatik.

—Bai, olaxen da. Lerro oneik argia ikusi dabeneko, egun oneitan asiko dan Tour ekitaldia egiña izango da, bertan sei euzkotar izango dira jokoan: Gandarias, Galdeano, Galdos, Uribezubia, Zubero ta Santamaria; Langarika'ren agindupean lenengo bostak eta Momeñe'renean bestea. Uste dozu oneitariko batek lasterketa ospetsu ori irabazi leikenik?

—Birakada ori irabaztea ez da gauza erreza izaten, aldi onetan diran txirrindularirik onenak izango diralako bertan, baiña ez lortu eziña. Niretzako poztasunik andiena Tour ori euzkotar batek irabaztea izango litzake, baiña gaitza da, naita ondo be ondo aurkintzen dirala Galdos, Gandarias, Zubero ta besteok. Zori-txarren bat ez ba'dabe, aurrenengo maillan eurotarikoren bat ikusiko dogula uste dot, amaieran jakiña.


—Guk be orretara izatea nai genduke, baiña lasterketea asi baiño lenagotik Merckz aukeratzen dabe irabazle. Iñoiz izan danik onena dala diñoe, ta ez ei-dago berari irabaziko dautsanik.

—Egia da, on-ona da baiña nire aldiko Coppi, Kubler, Koblet, Bobet, Anquetil, Bahamontes eta enparauegaz ez eban ainbeste lasterketa irabazterik izango. Orain, belgatar orren ondoan, beste guztiak, kikilduta, konplejopean urretan dabe, orri irabazi leikeonik be ziñistu barik.

—Zer esango zeunkie orduan gure lasterkari orrei?

—Jo dagiela bildur barik zelaian, aldatzean edo aldatzberan, eta orretara ekin ezketiño irabazi leikioela.

—Ez dakigu irakurriko daben, baiña orretara idatziko dogu urrengorako ba'da be. Ta, zeure txirrinduketa aldiko jazokun barregarriren bat Josu?



—Jazokunak, eta barregarriak be asko, baiña ara emen bat bene-benetakoa: Gudaritzan nintzala, bear zan baimenagaz, Burgos'ko Biran izan nintzan eta amaitu zanean ez eusten irabazi neban txindia emon egun aretan, eta bultzian etorteko aiña txindi ez neukala, ogi andi bat, gaztai txiki bat eta laranja batzuk erosi ta eurak janez, gabaz, Larrabetzu'ra txirrindu gaiñean etorri be, lasterketa a amaitu ondoren, jakiña.

—Ori da zaletasuna ta kemena eukitea, Josu, gaurko kiroldar askok eredutzat artu bear leukeen lakoa. Azkenez beste zerbait, Loroño?

—Bai, nire agurrik samurrena AGUR'en irakurle guztiei.

—Gureakin batera bialduko dautsegu.

ALTUNA'TAR JOSU

LUDIKO II TXISTERA TXAPELKETEA

«Jai-Alai» Pillota-tokia, Donibane-Lohitzun'en 1971 — Bagilla, Garilla, Danogilla.

Pelota-txapelketa au Bagillaren 18'an asi zan. Pelotari-bikoteak 17 dira, guztiz, eta iru alditan jokatuko da. Lenengo aldian bikote oneik:

Lekube ta Borra, Elejabarrieta II eta Frias'en aurka.

Camy ta Berrojalbiz, Izagirre ta Guenetxea'ren aurka.

Arrarte III eta IV, Castro II eta Fourneau'ren aurka.

Apraiz II eta Mendi, Etcheverry ta Egi'ren aurka.

Bigarren aldian, beste bikote oneik be jokatuko dabe:

Gisasola ta Zarandona, Ibarretxe ta Irigoras'en aurka.

Arrasate ta Gorroño, Ondorres eta Larrañaga'ren aurka.

Eta irugarren aldian, azkenengoan, igazko txapelketan nagusi ta bigarren izan ziran bikoteak sartuko dira jokoan:

Bengoa ta Goyoaga - txapeldunak,


Elejabarrieta ta Tximela—bigarrenak.

Txapelketearen azken-jokaldia, Dagonillaren 27'an izango da. Ikusgarri bikaiña benetan!

ITZ-EUNDUAK

(XII)

Etxebarria'tar Juan Anjel



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Muga-itza.—B: Etsipena.—D: Ugartea.—E: Euskal-txirrindularia (a. a.); Konsonantea.—G: Neska-izena; Duin.—I: Ari-bilduma; Atea.—J: Egazti igerilaria (a. a.); Euskal-abizena.—K: Oarpen; Antzeko.—L: Konzonantea; Txar-txarra (a. a.).—M: Sits-autsa (a. a.).—N: Zuk (a. a.).—O: Konsonanteak.

GOITIK BERA.—1: Bokal bardiñak.—2: Lotara (a. a.).—3: Ogi-billa.—4: Illunabar; Konsonantea.—5: Españi'ko ibaia; Txirtxil birritan (a. a.).—6: Bakoitzak amar; Barau.—7: Burestun; Abizena.—8: Atsekabe (a. a.); Inguruz.—9: Bokala; Goldaketan.—10: Ordu egokian.—11: Arpegi illun.—12: Leku artan.

XI'aren agerpenak:

Zearretara = II. — Soka. — Pagola. — Turuta; N. — aokirU; Gar. — Ezkata; Gogai. — Jaitu; aorixT. — Lau; Adigai. — N; Osorik. — Oloriz. — Atea. — Ez.

Goitik bera = eJ. — Azal. — Tokian. — Pukatu; O. — Saritu; Ola. — Logura; Asote. — Ikotu; Adorez. — Ala; Goiria. — A; Gorgiz. — Nagiak. — raxI. — iT.

BADA-EZBADAN BEINZAT

Oiturak aldatzen doaz beti. Gure ume ta gazte denporetako zenbat oitura aldendu dira ta zenbat barri sortu! Oitura barri bat, zidarrezko ta urrezko eztaiak ospatzea da. Euren ezkontza egunean, bear ba'da, eguneroko indiabak janda gelditu ziranak, andik berrogetamar urtera andikiro ospatzen dabe alkartu ziran egun aren gomuta.

Oitura au ezkontza edo eztegu izan ez ziran beste gauzen gomuta ospatzeko be sartu da: lantegi, kirol-bazkun edo edozer sortu zaneko onenbeste edo arenbeste urte ospatzeko. Olan, azken urteotan kirol-bazkunak alkarren leian lez dabiz sortu ziraneko urre eztaiak ospatzen iñun diran jaiak egiñaz. Atletik'ek, Bartzelona'k eta Madrid'ek be ospatu izan dabez aurreko urteetan sortu ziraneko berrogetamargarren urte edo orain esaten dan lez, urre eztaiak.

Ta bazkun andi ta entzutetsuak egiten dabena egiteko besteak be ba-daukela eskubidea-ta, gure erri onetako «Aurrera»k be urre eztaiak ospatu ditu. Ta ez erdipurdiz, ondarrutarrok dakigun lez andikiro baiño. Bagilla'ko bigarren astean jai ederrik izan da Ondarru'n; abesti jai, futbol joku, berbena, meza nagusi eder eta abar, makiñabat gauza egin da Aurrera'ren urre eztaiak dirala-ta.

Baiña... (ta sekula be ez «baiña»ka esteko errazoi andiagorik) baiña ba al dira ba berrogetamar urte Club Deportivo Aurrera sortu zanetik? Ondarrabia'n emon eusten lenengo aldiz urre-eztai onein barri ta aoa zabalik gelditu nintzan. Ta barri emoilleari egin neutsan itauna barriztaten dot emen be: Ba al dira berrogetamar urte Aurrera sortu zala? Nik neuk ezetz esango neuke. Aurrera jarri zan leku edo etxea batzokia izan zan 1923'gnera arte. Oraindik amar urte egin barik neukazan, baiña, enparantza gaiñetik aurre-aurrean geunkan batzokiko balkoi gaiñeko ikurritza beti betiko buruan gelditu jakun: Euskaldun Lagun-Artea. Ta batzokia kendu ta akeitetxe ari Cafe Español izena ipiñi eutsen. Baiña andik aste batzutara izen au be kendu eutsen eta «Club Deportivo Aurrera» ipiñi.

Kontu oneik olan ba'dira, berrogeta zortzi urte be bete barik dagoz Aurrera sortu zanetik. Beintzat ni ez naz gogoratzen Aurrera beste lekuren baten be egon izan danik. Bear ba'da. Aurrera'ren batzokia ipiñi baiño len kiroltzaleren batzuk beste nunbait batu ta zerbait egin naian ibilli eitekezan. Baiña ala ba'litz be ori ez da Aurrera sortutea. Aurrera jaio zan, izen ori agirian ipiñiaz batzokia idegi ebenean.

Autu onetan erri osoaren aurka-edo neuk errazoia eukitea ezin siñistuta, neure erriratu naizen egun baten or ibilli izan naz zerbait argitu naian arei ta onei itaunka. Iñok ez daust ziurtasunez berbarik egin. Diktadura ordurako, batzokia gero izan zan tokira aldatuta egoala be esan eustan Aurrera'n aurrean ibilli izan dan batek. Ez lagun zar, batzoki barria 1932'gn urtean edo urrengoan zabaldu zan. Onetan ez dago ezpairik, au errez garbitu leiteken kontua da.

Uste dot ondarrutarrok oraingoan ainka sartze txiki bat izan dogula. Jakiña, ez da au estutzeko kontua. Karlos I'k il baiño len egin zituan bere illetak, bera il kaxan sartuta eliza erdian zala. Ildakoan egingo ez ba'eutsezen be ziurtatu beintzat. Guk be emendik urte bira bear ba'da beste kontu batzun kezka ta arduraz urrezko eztai oneik egiteko gogo ta asti gitxi izan geinke ta egiñak eginda dagoz.

Ederto mutillak!

KAMIÑAZPI

TOUR

Or, irugarren egunerako guztia ankazgora. Asko makaldu bearko da Merckx iñor gaiñetik jarriko ba-yako. Ainbesteren artean, bateron-batek, suerte pixkabatekin, edo aundi-aundiakin, ezin al-izateak diño dana, esan bear dan guztia. Ala ta be, batzu-batzuk jarraitzen dautse, neke ta ezbear aundien ordaiñakin, bera baiña, gerkarra-edo izan ba'zan jaungoikotzat izango eben.

Bai ete gero? Merckx gizandi bat da bere arloan, ta ori erakusteko erea ta aukerea izan dauz, edo gertatzen dakiz... or kozkea, ez eteda ba azpitik, aurretik obeto esateko, beste zerbait?

Ez goaz bear ez dan amesetarik asmatzera, bekaiñetik aurrera begiratzen ez dogulako ikusten ez dogun, garbi-garbi dagon, beste zerbait baiño. Gogorra izango da; ori, ta bere bizikerea nolakoa ete da? Biotzakin gabiltza guretatik geienok, ez baiña garunak eraginda, naiz ta ondo asmatzen dakigula uste izan, lengoak baiño askoz be obeto beintzat: Gure mutillak or zear doazanean, irabazi bear dabela uste dogu edo nai, onak diralako ta *gureak* diralako, onegaitik batez be.


Baiña kirol edo beste edozein ekintzak asko eskatzen dauskue, asko ta... dan-dana gaiñera. Emoten-ete-dautsagu? Ez, irabaztea nai dogu, ondo bizi izatea geiago. Kiroltzalea danak, kirolez bizi bear dau ondo, ta kirolean aurkitu bere atsegiña ta zoriona, ez kafeteriz edo oporketaz. Ta ori ez dago edozeiñen eskuan. Gure erriak, ondo bizi izaten ba-daki, ardaoa edaten be bai, edo... ta dana ezin dogu batera lortu; bata edo bestea.

Neke ta biotz-zaletasunik bako garaipenak gizon maltzurrenak bakarrik izaten dira, laster baiña porrot egiteko. Aukeratu gura dozuna ta ez asarratu gero.

IBUR

LUGINTZA

(«Baserriaren adiskideen» gizarteko abelur - orria)



Baserriari laguntzeko alkarte lez, noizean bein, agertzen dira alkartasun batzuk. Eta neure, ustez, era bitekoak agertu be: batzuk laguntze au zabalkunde lez, propaganda lez, artzen dabe, beste batzuk, ostera, benetako baserri-zaleak diralako eta benetako euskal-zaleak diralako au egiten dabe. Laguntzaille zintzo onein artean «Baserri-adiskideak» diran LUGINTZA inguruan dabiltzanak dira. Antxiñatik ezagutzen doguz eta euren zintzotasunaren zinlari, testigu, gara.

Baiña ez uste izan euren guraria ariña ta oiñarri bakoa danik. Gizon trebeak dira eta lan au egiteko iñor ez lez gertatuak: baserri arazoa sakoentik ikasi dabe, baserrian lan egin dabe, baserritarrakaz artu-emonean urteak daroez.

Asko dira eurakan siñistu eta ustea ipiñi daben baserritarrak, baiña oindiño bear ba'da, beste askok ez dabez ezagututen edo eurakan ez dabe bear leiteken besteko ustea, konfiantzea, ezarten. Gure baserritarrak lagunzaille zintzorik ez dabe aurkitu, diru-eskaleak bai ugari, eta orregaitik uste ona galduta dagoz. Tamalgarria benetan! Baiña «Lugintza» *inguruan alkartu diranok egitez, ez berbaz, euren zintzotasuna agertzen dabe eta azkenean baserritarrak siñistuko dautse.*

Lugintzaren, edo baserriko, arazo guztiak kontuan artzen dabez, baiña lenengo ta bein baserritarraren gizontasuna, bere buruaren jabetasuna. Onetan euskaldunak beti agertu dogu zaletasuna. Erbestetik datozen laguntzailleak batasuna eskatzen dabe eta batasun ori egiteko gure nortasuna galazoten dauskue. Or arriskua. Oneik, ostera, alkartasuna ta norberaren jabetasuna alkartzeko bideak artu dabez.

Baserritarrentzat LUGINTZA deritxon orri bat ateraten dabe, euskeraz eta erderaz. Eurak darabillen euskerea oso garbia ta ederra da. Eta gaiak sakonak eta gure nekezareentzat oso egokiak eta onurakorrak. Esaterako, 92'garren zenbakian; Zeanuri'ko arazo bat, industriaren bear-izana ala ez? sakon-sakonetik aztertzen dabe. Arazo au beste erri askotako arazoa argitzeko be ona da. Jon Egileor'ek daki zein izan leiteken arazo onetan bide ona. Gero «Mutualismo y la seguridad social» idazlana. Bearrezkoa baita.

93'garren zenbakian Joakiñ Olaizola'k Galizia'ko lugintza-jokerea guretzako eredua ete dan aztertzen dau eta alkartasun batzun arriskua argi agertzen dau. Gero bedar lekuen arazoa be bai.

94'garrenean, Joakin Olaizola'k, barriro, Bizkai'ko lugintzaren egitura barria aztertzen dau. Geuk bere orain artean iñoz agertu dogun arazo arduragarria: baserritarrak, bai, baiña zelan? Alkartasunak bai, baiña zelan? Lan sakona eta jakingarria au gure baserritarrentzat. Gero beste idaz-lan bat, «Mutualidad Agraria en la Seguridad Social», lengoari jarraituz.

Orri oneik Bizkai'ko aurrezki-kutxaren lan-etxeetan aurtuko dozuez. Baiña ez bertan itxi, emoten dautzuezenean artu eta emoten ez ba'dautzuez, eskatu.

Baserritarrok, gaurko aldakuntza oneitan argitasuna ta askotariko laguntasuna bear dozuez. Gizartebabesak (seguroak), baserriaren aurrerapideak eta baserri taldeen alkartasunak, zelan eta nondik lortu, baita zeuen lanaren frutua zelan ugaritu ondo jakiteko eta orretarako biderik ziurrenak artzeko, jakintzaldetik onulari onak bearrezko dira, gaur iñoiz baiño geiago.

Laster igarriko dozue nortzuk benetako lana egiteko asmoetan eta nortzuk zuekandik onurea aterateko ustez datozen, orretarako zuek aspaldion begia argi daukazue ta. Artu ba etorri leiteketzuen laguntasuna eta AURRERA BETI.

OLAZAR MARTIÑ'EK

LANGILLEAK

VIETNAM'GO SINDIKALISMOA

Aurre idazkietan aitatu dugun CMT izen au ezezaguna diteke askorentzat, eta norbaitek galde dezake ere ea zer dan eta nun dan ezaguna.

CMT, orain gutxi arte CISC (Confederación Internacional de Sindicatos Cristianos) zan. Europa'n zuan indar aundiena, bost kontinentetan zabaldurik ba-zegoan ere. Geiago zabaldu nai zuan, deia ere nunnaitik zualako orretarako. Eta, onela, izena aldatuaz, mundu guztian siñismendun langilleen nazioarteko sindikato bat billakatu da.

Zeintzu nazioetan dagoan barratua eta bere ekiñak azaltzeko aski tokirik ez digu ematen izparringi batek, baiña zeredo ere



berri eman nai genuke, ta gaur mundu guztiko izparringien orrietan dagoan laterriatzaz mintzatuko gaituzute: VIETNAM.

Vietnam'go CVT (Vietnamdar Langilleen Alkartasuna) CMT'en sartua dago. Vietnam'go lur-langilleak, mailla-beekoz (subdesarrollatuak) dauden erri guztietan bezela, jopuen antzera bizi ziran. Onegatik, CVT, 1.949 garren urtean jaio zan langille alkarte bat bezela. Bere lendakari Tran Quoc Bun'en antzera, bere zuzendariak eraso txarrak eta espetxea ere ezagutuaz, bere nekaldiaz eta burrukaz toki bat artzen joan zan vietnamdar langilleen biotzetan. Bere oporraz eta burrukaz Vietnam'go sindikato nagusiena izatera iritxi zan, ta orretan jarraitzen du.

Eraso latzak izan ditu bai gobernarien aldetik, bai komunisten aldetik. Oraingoz, IPAR-VIETNAM'en zituan alkargoak galdu ditu, komunistak agintzen daudenetan bere sindikato bakarra, eta morroia, onartzen dutelako bakarrik. Komunistek, ez zituzten orren faltsoki erailgo bere bazkideak, etsai aulak zirala ikusi izan ba-zuten. Komunisten agintea kaiserkeri agintea izaki, nunnai.

Bosteun milla bazkide EGO-VIETNAM'en bakarrik indar beldurgarria zan, eta Dien eskumatar lendakaria ez zegoan lasai. CVT barruan 1.953'gnean sortutako Vietnam'go Lur-langilleen Alkargoa'ri, Diem'ek eraso batez ekin zion 1.959'garrenean. Onen aurkako beste sindikato bat eratu zuan, ta besteari gogor ekin zion eraso unkigarri batean. Ta sei urte oien buruan 330.000 bazkidetik ia 300.000 galdu zituan.

1963'garrenean, baiñan, Diem erori zan ta onek asmatutako sindikatoa ia galtzera etorri danean CVT'eko nekazariak ostera lengora etorri dira bere 180.000 bazkideekin.

Ego-Vietnam'en ba-daude beste sindikatoak. Esatebaterako, CVS bere 50.000 bazkideekin (Saigon aldean dauden txinatarrak, geienak), oraintsu Mekong aldean sortu dan lur eta industri langilleen alkargoa, bere 35.000'ekin, eta Diru-Etxeetako Langilleena. Baiñan gaurregun EGO-VIETNAM'en 525 Sindikato ezagunetan, geienak CVT batean daude, bakoitza bere sindikato saillean. Danetara CVT Alkargo onek 500.000 langille ditu.

Beraz, au jakiñik ez zerate arrituko bi aldetako erasoak jasan bear izatea. Izan ere, bere indarrarekin, alkargo sendoena dalako, goietan itzala ba-du eta tokia arkitzen du indar egiteko.

Guda latz batean bizi dira. Alabaiñan, ongi eratua dagoalako, opor eta burrukak aldameneratu gabe, ba-dagi lan sozial arazoetan. 25 Jakintz-Etxe, Klinikak eta Kredito-Etxeak, bere bazkide ta ez diranentzat bere diruz sortu ditu. Gudak bultzaturik iges datozkien eundaka errukarri jasota daude CVT'en etxeetan.

Une garratzenetan arroza ekarri izandu du bere diruz, eta Gobernuak berak baiño merkeago saldu erritarrei. Bai eta erakar eta merkeago saldu lur-ongarriak, estraperlisten kaltetan. 1.968'garren urtean bakarrik, 58.000 tonelada lur-ongarri saldu zituan. 250 Kooperatiba eratu, traktoreak ere ekartzeko. Amar sendiek erabiltzen dute traktore bakoitza, eta ateratzen duten diruaz berritzen dijoazte auek.

Eguneroko izparringiek arpegiaren alde bakarra erakusten digute: guda negargarria. Baiñan guda orren mikatztasunean, badabiltzala langille zintzo batzuek erria obetu nairik, erakusten digu arpegiaren beste aldeak, gaur ain baldarki azaltzen dizuetena.

OLAZABAL'DAR XABIER

ERROMA'TIK ESKUTITZA

Aita Santuaren azken Eskutitza

1.891'*garreneko Orrillaren* 15'*ean*, XIII Leon Aita Santuak, gizarte-arazoei buruz, lenengo «enziklika» argitara zuen. «Enziklika», grekerazko berba da eta eskutitz edo idazki esan gura dau; baiña betiko eskutitzak baiño, ospe andiagoz, emoten dana da. Eta, 1.971'garreneko Orrillaren 14'ean, arratsaldean, «enziklika» a atara zalarik, 80 urte bete direla, VI Paul Aita Santuak gertakizun ori ospatu ta yaitu gura izan dau. Eta eskutitza edo idazkia zabaldu dau, «Roy» kardenalari egiña. «Roy» kardenala, «Zuzentasun ta Bake» deritxon Aita Santu-Batzordearen buru da.

«Enziklika» esan barik, «Apostolutar eskutitza» deitu dautso; eta bati bakarrari zuzendua dago, «Roy» kardenalari. Ez, mundu guztiari edo gotzai guztiei, «enziklikak» oi direzan lez. Eta «Larogeigarren urtea eldu dalarik» berbakaz asten da; eta izen orrez deituten yako. Era eskutitzei yagoken lez, errez, anai-arteko, argi ta apal agertzen yaku. 12 milla berba daukoz euki eskutitz osoak; eta sarbidearen gaiñez, lau atal. Ona zelan:

Lenengoan, gaurko uri andien sortzea ta gertakizun orren ondorioak aitatzen dauz, esate baterako baserri ta erriak ustutzea ta orreitan bizi ziran yendeak, industrietara, landolak ta lantegiak dagozen lekuetara yoatea; yendeak yendeen ondoan ta etxeak etxeen gain pillatuz ta metatuz ta ikaragarrizko uri andiak sortuz.

Gertakari barri onek, orain arteko bizimodua ta zibilizazioa aldatuz ta bestelatuz daroala, bai emakumeetan, bai langilleetan ta euren sindikatoetan..., ta abar.

* * *

Bigarren atala, munduko idazleek ta paperek, geien azaldu ta izkatu dabena da.

«Gizonen gora-naia ta pentsakeraren aurreraka ta abiada munduan». Ortaz diardu. Ta ortan, artez-artez, politika gaia ukituten dau.

Gizonak beregan daroala irrits bikoitza: aldez, bardintasuna tinkotzea danon artean; aldez, danok partedun ta erdikide izatea. Ta oldozkun orrek, berez lez, demokraziara garoazala. Baiñan demokrazia-moldeak, bat baiño geiago direzala: batzuek, idealismo geiagodunak, bestetzuek, eginkizunari, ideari baiño, geiago begiratzen dautsoenak.

Kristauek bearturik dagozala, diño apostolutar Eskutitzak, politikarik onena billatzen alegintzeko ta gizartea zuzenki eraltzeko, aalegiñak egitera. Baiña siñismen bardin berberak, gu bakoitzak, bide ezberdiñetara eroan gaikez. Ta orregatik, politikan, be askotasuna bearrezkoa dogu.

Alan da be, ba dira politika-tankera batzu, kristauek onar ezin dagikezanak.

Lenengo, «marxismoa»; materialista ta Yainkoa ukatzen dauena da; indarkeria ta bortxa goratzen dau ta gizartean, bakoitzaren azke izatea, ez dau ondo adiarazoten ta irakasten; ta gizonari, be ez dautso garrantzi espirituala, izatezkoa ta goi-izatezkoa emoten, ez bakoitzaren aldetik, ezta alkargoaren aldetik.

Bigarren liberalismo barria, be ezin daiteke ontzat ar, diño Aita Santuak, Bakoitzaren libertadeari mugabagako askatasuna ta zabalera emoten dautsolako.

Eta barriro «marxismo» ra etorriz, XXIII Yon Aita Santuak esaten ebana ta berak, be, «II Batikano» Batzarrean esan ebana, barriro gogora ekartzen dausku. Au da, berezkuntza egin bear dala sorburuko irakatsiaren artean eta, gero, irakatsi a onartuz, ekonomian ta gizarte-arazoetan edo yakinkizunetan edo politikan, bearrean diarduten giza-moltzoen ekintzaren artean. Berba bitan esateko: sorburuko irakatsia ta ondorengo gizonen ekintza, zer bi orrein artean, berezkuntza egin bear dala.

Ekintzan diarduten gizon areikaz alkarizketak eraldu daitekezala ta arein gauza onak, guk be, geuretzat ar dagikeguzala.

«II Batikano» Batzarrean ori bera esan zan. (Irakurri «VI Paul A. Santua» ta «Il Batikano» Batzarra, 248 orrialdean ta 266-275 orrialdeetan).

Esan dogunetik, Eskutitza sozialismoren igarotzen da; ta oartzen dala, diñosku, egungo yendeek alderdi orretara yoten dauela sarri. Zuzentasun ta alkartasun ta bardintasun naiak dituzala alderdi orrek, uste dabelako yendeok; baita zuzentasuna, obeto beteko dauen gizartearen billa, dabillela.

Ta zirkunstantziak ta aldien azi-orraziak ta noiz-nolak, zeatz-zeatzean, aztertu-ta, sozialistakaz batera lan egin dagilkeela, gizonen askatasuna ta erantzukizuna (erresponsabilidadea) ta espiritualerako yokabidea gorde ta yabon ezkero.

Olan gizona, murriztu barik, bere izaera osoan aurrera ta gora yoaten dalako.

* * *

Irugarren atalean, Aita Santuak munduan sorbarri diran buruauste, kezka ta erabaki gaietaz berba egiten dau.

Elizaren irakatsia ez dagoela, iñoiz bere geldi; aitzitik beti bizi-bizi dagoela ta ekinekin diarduela beti, diño. Bereziki, munduko ondasunen geiago ta zuzenago banaturik egotea yendartean, gura, dauela. Ta elburu ori lortzeko, bai biotzak baita gizarte-egiturak (estrukturak) aldatzea ta bestelatzea, bearrezko dala. Ta ortan aalegiñak egin bear dabezala, esaten dautsee kristauei.

* * *

Eta laugarren atala, apostolutar-Eskutitzaren amaiera da: Kristauei ekintzan sar daitezela, eskatzen dautsee; bai lekuko kezka ta arazoetan baita errialdekoetan ta latrrikoetan, baita lurbira osokoetan.

Beti kontuan eukita, kezka ta zailtasun ta buruausteen erdian, naiz ta siñismen bat bera ta bakarra ta bardiña izan, areik biguntzeko ta argitzeko ta errazteko ta askatzeko bideak, bat baiño geiago, ta egokiak gero, izan daitezkela. Ortik politikan, be, askotasuna izaten libre utzi bearra.

Guk euskaldunok Aita Santutza iritsi andian izan degu ta daukagu; ta eskutitzmami-mamitsu oneri garrantzi ta gora emon bear dautsogu ta arretaz irakurri ta gogoan erabilli.

Mundu zabaleko paperek idatzi dabe «Larogeigarren urtea eldu dalarik» apostolutar Eskiutitz onek, naiz ta izen apala eukiAita Santutzaren aldetik argitara direzan agiri garrantzitsuenen artean lekua izango dauela.

YURRE'TAR YULEN

OMENALDIAK

Azken bolara ontan, entzuten dira, leku izkutuenetan jai-giro batzuk, gizon bateri eskeiñitako omenaldia dela ta aitzaki. Jai-aldi oiek, ba-dituzte noski, milla indar, egun berezi bat moldatzeko.

Omenaldiak, geienetan, onelako gizoneri eskeintzen zaioe: Berrogei ta amar urtean lan-tokian trauntzadunari; erri bateko agintariari, larogei urte ditun apaizari; kanpaia jotzen ia aspertuta dagon sakristauari, berrogei urte, edo eun, il zan bertsolariari; margolari edo idazle sonatuari... Ori naikoa da erri batean jendea alkartzeko, giro zoragarri bat sortzeko, zorion beroenak ugaritzeko eta egun apartekoa bizitzeko. Egun bat batez ere, ondoren datozten beste 364 *egunak, esate baterako, jaramon aundirik ez izan arren gure bizitzarako.*

Baliteke omenaldiaren jabe izan den gizonaren berririk ez izatea, bere lanak ez ezagutzea, bere izerdiaren berririk ez jakitea. Alare alkartzen gera ene eguna moldatzeko. Ez nijoa omenaldiaren aurka ez; baiña siñistu nai nuke, milla gizon ba-dirala ludiko itzalpean, beste milla omenaldi merezi lutekenak. Edozein erriko barrenderoa, atzerritik etorri dan gizon ez-jakiña, lantegian izerdi askoren indarpean dagon langille, ospital bateko gaixoa, kale iskiñean eskua luzatzen dagon eskalea.

Oiek ere, zerbait merezi dutela pentzatzen det, baiñan ez egun bateko omenaldi bat, baizik egun guztikoak, lagunduaz, eguneroko ogiakin, agur bero batekin, alkar-izketakin, bere eskubideak eta nortasuna zaintzeko. Ori izango litzakela uste dut, gizon bakoitzarentzat omenaldirik jator eta sakonena.

RAMON ZAPIRAIN

ERRIETAKO BARRIAK

Arratia

IREATZA

Egiz eta benetan onuragarria erriarentzat ireatzatarren oraingo endorea, Gabiri jauna. Lile edo txaideak troka-zulo ta arrankal-duten zituezan zama-berebillik ez da iñon gri aldi onetan. Beti ostikopean izaten ziran rto-txakur ganorabakoak be urritu dira-ta, ntura ona ta garbitasuna txoko ta baster ztietan. Garbitasunik bikaiñena baiña enpa-ntzan, plazan egin ebana izan zan, Bagi-aren 6'gnean.

Aldi bateko poral-mikeleteen antzeko txa-elez jantzirik etorri ziran nonbaitetik, goraka a beraka oiuka, izkanbilla sortu gurarik. Erriko buruzagi barria ez zan okildu, ta gintze-makillea eskuan arturik, an bialdu ituan, aguro, etorri izan ziran bideetati, tapel eta arrokeri guztiak ezerezturik. Zorion ori alkate jaunam guztiontzat neurri bardiñak dozualako.

Mendigane.—Petralanda'tar Maren aititea, Mendigane'ko lokatzartean ondatu yakon berebilla atara eziñik lertuta atxeratu zan. Zer itxuratan baiña! Lokatzartean galdu bai ituan oiñetako ta praka!

ARANTZATZU

Antxiñako oitura zar jatorrari jarraituz rteroko osteratxoa egin eben San Antonio'ri skariak egitera. Gure Jerbasio'nean, baserri-arrentzat ostaturik egokienean, agurtu neba-an, Antxe ari ziran amarretakoa egiten, mar-emazte gazte ta urteetakoak, ezkondu zan ziran urtean baizen maiterik. Gure Arantzazu onetan ez dago Gipuzkoa'ko Arantzazu'n dan jakituririk, euskerarenga-tako jatortasuna ostera... jauntxo asko-rentzat eredugarri.

URKIOLA

Bagilla'ren 19'gnean giñan, eguzkia bere amagana joian eta ni bere etxerarakoa egiteko gerturik. Eta alan nintzala, Euba'ko gizon gazte, euskaldun zintzo batek agurtu ninduen, kezkatsu ta armin. Urkiola'ko apaizai par-itaunak egiteko eskariakaz. Eta, neu bere alkarturik arratsaldeko seiretan izan zan meza aretako euskaldunekin emen doakiez itaun-oarrak:

Euskeraz izango zala iragarri ondoren, zergaitik izan zan bi-izkuntzatan meza a? Zergatik ez ba euskaldunai euskeraz, eta erdaldunai erderaz, bakoitzaren inkuntzan osotuta?

Agur ba, Estonba jauna, ta gogoan izan, arren, gure eskari apal au.

LANDAJUELA'TAR A.

Irun

ANDRE JOXPAKIÑA

Il egin zaigu. Erriko zaarrena bera zan, Izan ere, eun-da bigarrenean sartua genduan. Ez izan ordea betikoak emen, Deus gutxi bear urte oietan ta uskeri batek eraman zigun. Betiko zorionean bego gure Andre Joxpakiña Bengoetxea ta Suspe-rregi, amonatxo txintxo ta agurgarria.

Urte askotxotan Zumai'ko Zuloaga'tarrenean mirabe egona zan, sukaldaritzan gaiñera. Etzeu-katela saltzeko entzun izan det. Amaika eskeintza egin omen zizkioten jatetxe onentxoetarako ere, baiña berak antxe iraun zuan lanerako gauza izan zan bitarte guztian. Gaurko zenbat pinpillipauxa eriñen antzik etzuan, dirudianez, Joxpakiña zin-tzoak. Bera eta bere antzeko amaikatxo «Andre» joanak ditugu, Betiko nere ustez.

KARRIKA IZENAK

Erderazkoekin batera euskerazkoak ere jartzeko dirala jakin degu. Zerbait da. Karrika berri asko ere da-ta, leengo izen zaarrak ez dira beintzat gal-duko, alegia, leen soro ta alor ziranak zitutenak. Bidezko da.

Orretzaz gaiñera, euskal idazle batzuen izenaz ere izendatuko ditutela karrika batzuek jakin det: Ezenarro'k, Baxurko'k, Uranzu ta besteren batzuek illezkortuko ditue beren izenak era ontara. Ederki. Zenbait zuaitzen izenez ere deituko dituztela banaka batzuek jakin det, eta ala, «Makal-karrika», «Ariza-karrika» «Ezpel-karrika», «Pago-karrika» t. ab. izango omen ditugu. Zorionak ortan lan egin dutenei.

AURTEN BAZTARTURIK

Utzi digute gure euskera. Urteero erdibana izan oi genituan erderazko ta euskerazko sariak, Irun'go Erriaren Elerti Sariketan, alegia. Aurten, bat bakarra. Zergatikan? Zabarkeriz ote? Ala ematen du.

Idazki-sariak asko jaso dituzten ontan euskera txokoratu? Dagokionari emendikantxe dei egiten diogu. Arren, zuzendu dezala bidegabekeri auxe.

IDIAZABAL

Izeneko liburua ikusi berria det, nere aurrekoak alderki aietakoak ziralarik, beti diot Gipuzkoa'ko Goierri'ri maitasun bereizi bat. Erriaren errespetoz besterik ez bazen ere, nere ustetan liburu onek euskeraz argitaldua izan bear zukeala argi ta garbi ageri da. Itsuak ere ikus lezake ala dela. Gaur Idiazabal oso euskalduna da, beti izan danez. Beraz... bakoitzari berea.

SATOR

Arrangoitz

Jaz bezala, ikasgu aroaren burutzea emaiten, birden azken-besta izan dugu emen. Jaz leen jaia zela ontsa atera zakun. Aurten ainitzez obeki; ttipi ta adiñeko, irur bider geiago izan gire.


Goizondoan meza abestua; pertsularíak eta aurtxoen eskaintza. Geroz, erriko-etxe aitzinean eskual-jaia, aur eta lagungoek amikatu arteo, ta geienak oturuntzerat: Maillar zuriak; oiko ziriko zer nai —bederatzi il zituzten— gazta ta pastiza. Aurten ba-zen ganibeta ta sadeska frango. Eskerrik-asko!

Akitu ezin ziren aurrak saildu zuten antzezaldi pullita bazkal-gibelean, eta dantza ta abesti bestalierrentzat, pertsulari gazteak ere bai ego-aldekoak. Aurrak ibaiaren bi aldekoak ziren; oso alegera Lazkano'tik jiñak, bostpasei urtedunak, urxintxak ziduriten.

Bildu zan libera multxu bat alaber, ikastolari laguntzeko, aboro bear baiñan. Bertzalde ta iraiteren ordaiña: ala baita doatsua! Geurtz, zazpi ikastola izanen dire iparralde onetan. Donibane'n eta Ziburu'n biga berriak idekiko dituzte.

Ez dire, ez, auer ibilli buraso gazteak; eliakotz gauaz arras lo guti egin zuten, oatu gabe eiki. Andereiño, barride, Apezaita ta Auzapeza'ren laguntza izan dute. Gorespenak denori, ta Libe andereiñoari batez ere, nire au agertu diuteneko ezkunduko baitzaigu.

LARRAUITZ'TAR IBON



Bilbao

SANTUTXU'KO UMEEN EUSKAL-JAIA

Euskal umeak Padua'ko Andoni Deunaren egunean Santutxu izentaturiko Bilbo'ko auzune oztetsuan izan eben Euskal-jaia. Euritsua aldika batetik, bestetik zorionez euskal-kutsuz ta leiaz beterikoa agertu iakun. Edonun naizta tamalez geienak erderaz mintzatu, euskal zaletasuna jarion ta notintzea batera ta bestera, Etxebarria lantegiak ereti onetako aukeraturiko Kirol-ezlaitsuaren baranoan, pozarren ta joranez, ba-ebillen ibilli.

Millaka ume ta gazte, neskatil-mutikotxoak, umekondoak geien bat ta euskal gisaz poliki jantzirikoak, kirol-zelaitsuan goiz gogoangarri ontan batu ziran. Bizkaitarrak ezeze, Gipuzkoa aldekoak bere bai. Begiragarri, pozgarri benetan!

Joan dan illean «Eibarren» izan eben antzekoa ei zan. Ni an ezegonaz baiña, itunik bai-nengoan egon, oingoan bestalde alaikiro aurkitzen nintzan gure euskal abendaren asikiñak bein ta barriro begiztatuaz. Gaur ume oneik euskal etorkizunaren legamiña egin-egiñean diranetz.

Mezea amarretan asi zan, gero euskal jolas-abestiak ugari, ta ordu batak inguruan txapel-ezartzea, au da txapelak talde bakoitzaren buruzagiei ezartzea, izan gendun. Orduko zerua laiñoz bete iakun, ta goizaldea orrela amaiturik, sail guztiak or ta emen alaitasunez, euskal-abestiz, aurreskuz ta beste dantza banatuz, bazter, zokorik geienak bete ebezelarik, sakabanatu ziran.

Arratsaldean bostak jota ume-taldeak barriren barri kirol-zelaitsuan sartu ziran, ta Dindirri taldeko dantzariak barruratu ala baiña euri-zaparrada izugarri bat zerutik, iatzirik, ariñeketa baten urten gendun guztiok aterpe billa, ta an amaitu ziran geienentzat euskal-jaiak.

Giro obeaz aulako euskal-jaiak ospatutzea nai izango geunkez zin-ziñez.

EUSKALDUNEI EUSKERAZ

Ta orain Bilbo'ko gurasoai batez bere oar bat:

Zeuen berein ume euskal-ikastoletan dabiltz ibilli, baiña etxeratzean dana erderea da eurentzat, kale-jolasak, urrut-ikuskiña ta txarrena gurasoak eurekaz euskeraz jarduteko ardurarik eza ta nagikeria.

Batzuek ba-dakizue euskeraz, jardun ba semeekaz; bestetzuek jakin ez arren alegindu ikasten. Ez, sarri-askotan jazo oi dan lez, kalian «agur» ta «bai» ta «ez» esanaz bakarrik gelditu. Ala, orrela uste dozue zeuen euskalitxurea gorde ta buruak zuritzea? Ez beiñ. Dakusgunez, ez da ba euskaldunentzat euskerea jagotea txantetan ibilteko azaroa.

Santutxu'n lenengoko illaran etorren taldeak ba-ekarran txartel aundi baten agiri-agirian idatzirik esakera au: «Euskaldunei-euskeraz».

Sartu egizue ba egiz biotz barne- barnean euskerearentzako zaletasuna. Ez iatzue eguno damutuko!

ARREGI'TAR JOSU

Arrasate

AURREN EGUNA

Igandez, joan dan illaren 20'an, jai zoragarriau ospatu zan. Egualdi izugarri ederra, goizgoizetik eguzkia dizdiratsu agertu zan eta erbestetik etozen berebil ugariak, aurrekin beteta, ikusgarria benetan. Zaldibar pelota lekuan, etorri ziran aur guztiak eta gure erriko Ikastolakoak batu ziran, ta danok zuzendu ziran goiko enparantzara, kaleak zear. Talde ain aundi ta margoz eta edertasunez beterik ikustean, begira egoan ozte aundiak txalo ta txalo aspertu bage egiten eutsen. Ezin leiteke itzez ezta idatziz ere esan; ikusi egin bear zan. Enparantzara elduta, au bildu zan aur mordoa, beste ikusgarri ezin bastekoa izan zan. Igaz une ontan euskal-meza ederra izan zan, askoren atsegingarri, ta aurten ez da izan. *Zergaitik?*

Gero bost taldetan banandu ziran dantzariak, abeslariak ta soiñulariak, auzoetara joateko, ta or saiatu ziran ekiñaldi ederrak egiten. Urrengo, biñaka edo irunaka bildu ta sendi askoren artean, bazkari anaikorrak. Bazkaltze oitura eder au eso garrantzitsua izan oi da, olan euskalerriko aurrak, alkarregaz mai inguruan izateakin, anaitasun onurakorra lortzen due batasunerako. Bi milla aurreri jaten emoteko Arrasate'ko sendiak biotz ona erakutsi zuten.

Gero, atzera danok bildu ta biribilketa eder baten Zaldibar'eratu ziran berriz. ona eltzean, zer zan ura! Zenbat izango ziran... 2.000, iru milla ala geiago? Dana dala, ikusgarria benetan batasun ura, ikaragarria, dantza, soiñu ta abestiak danak batean. Txalots amaibakoa, ezin esan zein zan onena. Ain zan ederra, iño k ez genun atzetik bultzaka zabiltzeneri lekurik utzi nai. Nork utzi tokia une artan, danok giñan norberekoi aundiak. Txaloz aspertu eziñik bukatu zan jai zoragarri au. Gero, ozte osoa plazara berriz, amaiera emoteko. Danok alkarturik ta itzal aundienakin abestu zan «Agur Jaunak», ta arrezkero bakotxa bere erriko bidea artzera. Gauza bat oartu genun pozik: aurten, igaz baiño euskera geiago entzun dala aurren artean. Ikusten da ikastolen indarra aundia dala.

Kanta-Berri *Onetzaz ere zerbait idatzi det, baiña ale onen beste orrialde baten, olerkari jator batek egiten dautsan azterketea irakurriko dagu. Gaurkoz naikoa izango da.*

AZKUNDEA

San Juan bezperan, Santa Teresa izeneko eliza barriaren azkundea izan zan. Eliza au Musakola auzoan jaso da, eskerrak biotzoneko sendi bateri. Eliza aundi ta ondo apaindua, ta bertan jarri duten Kristo'ren irudi ederra, Juan de Avalos egiña da. Kristo onek besoak zabalik ditu, baiña ez du atzeko zurezko gurutzarik, ezta burestunik ere. Edergarri ikusgarria da.

Azkunde ortarako emen izan genun Gotzai jaun agurgarria, Argaia Goikoetxea, ta eliza jendez beterik zala, berak onestu zuan eliza. Gero, meza eder bat izan zan, erderaz eta euskeraz, Gotzaia ta beste apaiz batzuk alkartuta. Itzaldia ere berak egin zun erderaz. Meza bukatzean Argaia Jaunak itz batzuk euskeraz esan zitaun eta ongi begiratua izan zan. Orain jendea, bertaratzen alegindu ditezela gordezailleak, eta uste dogu, euskerari bear zaion begirapena emongo zaiola. Ez da ala, D. Paulo?

ERRIKO JAIAK

Igaro dira, eusko kutsu ederrean eta bake osoan. Zertzelada guztiak emotea luze izango litzake. Eleizkizunak be ederrak; bezperako Salbea ta San Juan eguneko Meza nagusia. Ikusten da badakiala gauzak ondo egiten gure parroko jaunak. Bejondaizula D. Jose Luis.

UDALAITZ

Tolosa

IKASTOLA LASKURAIN

Garagarrilla'k (Bagilla) 14 zituala, Sakramentinoetan ikastolei buruz itzaldiak izan ziran. Elizegi, Goena eta Cacho Nazabal iztun. Gairik sakonena: erakutsi bear al da erlijioa ikastoletan? Izlariak eta entzuleak baiezkoan egon giñan. Zorionez, Tolosa'ko gurasoak uste dute bearrezkoa dala. «Lendabizi gizon egin bear da» orrentzat, galdera au zegoan guztion adimenetan: *Eta gizona izaten galerazten al du aurrei erakustea ez lapurtzen, ez iñor erailtzen, lagun urkoa maitatzen, zintzoa izaten, geienen arrazoia errespetatzen?*

EUSKAL ANTZERKIAK

Uztailla' ren (Garilla) 12, 16, 19, 26 eta Agorra'ren (Dagonilla) 2'an talde ta antzerki auek ikusiko ditugu Iparragirre Antzokian: Tolosa'ko «Oargi»'k, «*Bizia bizi truk*»; Urnieta'ko «Egi Billa»'k, «*Agar'en seme...Ismael*»; Lezo'ko «Allerru»'k, «*Odol urdiñekoak*»; Urretxu'ko «Irimo»'k «*Zaldilaria*» eta Asteasu'ko «Kukute» taldeak, «*Denok ixildu egiten gera*».

«Lenengo Antzerki-Sail Emanaldia» onek, indarrez ematen dio asiera. Eta kezkarik ez det, datorren urtean oraindik ugariagoak izango dirala emanaldi auek.

CIT'eko jaunei eskatzen diet jarrai dezatela orrela euskal gauzak eragiten. Tabernetan berriketan ez, onela egiten da lan euskeraren alde.

SAKRISTAUARI OMENALDIA

Lerro auek argitara ematarako ain zuzen omenaldia egiña egongo da. San Juan egunez, meza nagusi alkartu bat emango da buru gure Gotzai Argaia jauna dutela. Artetxe-Aldanondo sendi onek 108 urte eman ditu lan onetan, eta Luis Artetxe Aldanondo, 49 urte bete ditualarik eginkizun ontan, atsedena artzeko garaia eldu zaiolako.

Gure parrokia dan Santa Maria elizan, au dala-ta, jende aunitz bilduko dala uste degu.

ERRIKO JAIAK

Aurtengoak ere joan dira, soiñu eta dantzaz. Esan dezakegu, ordea, jakintzak izan duala bere tokia. 23'garrenean Andoain'go «Beti Abeslari Abesbatzak» abestu zuan. 26'garrenean Tolosa'ko Eresbatzarekin alkartuta Orfeon Donostiarrak bere saioa San Franzizko eleizan, zuzentzaille Javier Bello Portu tolosarra zutela.

Umeen Marrazki Erakusketa, Euskal Antzerkia, «Erri-Errietako Euskal Dantzaldiak eta Soiñuak» «Udaberri» tolosar taldeak emana. Eta erriko Eresbatzak zenbait konzierto.

EGOKIA

Onela deritzaigu gure alkate berriak artu duan jokera. Tolosak etxe asko ditu karaitz arrizko ormekin. Batzuetan margoz eta besteetan igeltzoz estalita zeuden. Orain auek kendu, arriak ozkatu, eta beti-beti izan dan erri zaar baten itxura ederra ari zaigu artzen.

Au dala-ta, batzuek «pika-piedras» ipiñi diote izengoiti alkateari. Guk, orri auetatik gure zorion beroak damazkiogu. Ongi egiñak goraipatzeko eta txarki egiñak astintzeko gaude idazleok. Eta beti da atsegiñagoa ona gorapaitzen.

«AGUR»

—Zer da, baiñan, AGUR»

—Ez zenekian? Toizu. Irakur.

—Onen billa nenbillen. Frantzera eta gaztelera gutxi jakiñik, eta euskeraz or-or, iru patrikara bear nituan iru iztegiak erabiltzeko batezere frantzera eta gaztelera. Ba-zan ordu, ametskeriak utzi eta euskera-euskera erabiltzen duan izparringi bat eskuratzea. Egin nere arpidetza... «mesfidantzarik» gabe.

—Anitz esker. Barra-barra ugaritzen dijoazten arpidudenetan edukiko zu ere.

UXOLA

EUSKAL - ERRITIK BEGIRA

Bengala'ko Dacca'n, bildurretik be urrin joanak dozuz, bizirik bako moteltasun osora. Bitartean, azpiratzailleak, bertako gudari ta ertzaiñak iges egin eutsenetik, indar barriak gertatzen: bost milla ekarri ditue Pakistani'tik eta beste amar milla bertako Bihari etxekalteen artean jasotzen.

* * *

Pop'en uda-asierako jai nagusia izan da Glastonbury'ko zelaietan. Jokera barria sortu ei-yakoe, batez bere gazteen artean: Kistartasunera ei-datoz gogor, en eben «Jesus Tent» bat eta arabear ta arametar izkuntzako esakerak abestu be. Ia ba barrena jota atzera azalera datozan igerian, aizea artzera!

* * *

Esaten gendunez, Luxenburg'en Europa aunditzea erabagi dabe. Itxuraz baiña, Paris'en Heath ta Pompidou'k osotu eben danori. Or ez da gauza askorik burrukatu, aundiña ia laumilloeren gora-berea esne-guriñetan; uskeri orregaitik bakarrik ezin zan batzar ori ondatu.

* * *

Nor ete da Anatoly Marchenko? Errusitar langille bat, bere buruz ikasia, auto-didakta esaten jakona. Espetxean dago, Moscu'ko jauntxoen gogoko ez zan zerbait idatzi ebalako. Orain urte bi kalera joan bear eban, baiña epaiketa barria egin eutsen, espetxeko lagunen aurrean, Nyrob'en, jaurlaritzaren aurka itz egin ebalako. Orain barriz urtetekotan da, ara baiña irugarren epaiketea Krasny Bereg'en gertatzen. «Penguin» etxeak oraintzu bere «My Testimony» —Nire Ziñaltza— argitaratu dau, irakurgarria ei-da.

* * *

Ta, Anatol Fedosseyev jakituna? Au be «paraiso» tik igesik «inpernura», nundik sortzen ete-dira an ainbeste tonto. «Tonto» onek asmatu ta egin izan ditu or gora doazan ontzien bultzakin geienak.

* * *

Eskozi'ko auteskunde zatiko baten Robert Mcintyre abertzalea barriz burrukatzekotan da. Laburisten, eskumarren eta edozeiñen aurka. Ia ba mutil!

* * *

Anglikan Laterri Ziñeskera ta Methodist'en ziñesmenekoak alkartzeko alegiñetan dabiltz. Danak ez baiña pozik, irutik batek diñoanez, aukeratu diran arauak ez ei-dira gero beste kistarregaz bat egiteko egoki. Bestera, biok alkartu ta besteeri ateak ondo itxitekoak baiño. Ori diño beintzat Cyril Easthaugh gotzaiñak eta onen lagunak.

* * *

Faisal eta Sadat alkar besarkatzen... ta Persi'ko Kolkoan diran izaroak, ingelesak iges dagienean, nola banandu. Goikoak ez ba'dautse burua argitzen, arabearren arteko izkanbilla barria: Irak'ek bereak diralaka, Iran'ek geiago, bere itsas-ontziak aruntz bialtzen. Emir, ok-egin arte aberastuak be, zerbait egitekotan, azkenean Suiza'ko abiara edo iges.

* * *

Concorde ta TU-144, errusitarren erraldoia au, 1974'gnerako denean egaz ibilliko ei-dira, euren zarata ta guzti. Ori besterik ez ba'litz, baiña jakitunak diñoenez, orren errekin-kedarrak an goian gure zaintzaille-sapai osotzen daben 03 Ozon lagun ori ondatuko ei-dabe ta eguzkitik zuzenean sartuko ei-yakuz ubel-izpi indartsuak eta gure soiña erre. Bat-batean jazoko ez danetik izango ei-dogu epea egazkiñok baztertzeko.

* * *

Dermont Purgavie izparlari azkarrak diñoanez, Vietnam'en dan amerikarren gudarostearen kemenak beea jo ei-dau, ta laster amaituko dala uste daben guda orretan ilteko bildurrez. Ezin-bestean, aginduak ez betetearren euren nagusiak erail be egitera jarriak ei-dagoz.

* * *

Ludian, egunero ia bosteun milla jaioberri ei-daukaguz, Batzuen iritxiz jaiotzak neurtu egin bear ei-dira. Txina'n asi dira; eskondu al izateko gizonezkoak 30 urte ta emakumeak 26 gitxienez izan bear, ta irugarren aurra datorrenean irendu bearra. Gura ez dabenak zigortuak eta janari-txartela galdu; laugarrenik ba'letor gizartetik kanpora boteak izango dira.

BEGI-BI

EUSKAL HIT PARADE

AZKEN NEURKETEA

Labur baiña, aurrekoan esaten ganduna, disko barriak indartsu etozala, ososoan bete da. Bagil'eko erdian egin zan neurketan Madina'rena ta «Kresala» koena gorakadan datoz. Ona emen Xabier Madina'ren «Nun da Nekazaria?» lenen, gaiñeko maillara igota, ta Zorion bere «Bizi Euzkerea» kin edo Estitxu'ren «Zeru Garbia» ta «Bakarrik» baztertzekorik ez ba'da oindiño agertu be, ara, gero, onein ondoren «Kresala» koen «Gezurra» ta Xabier'en bestea, «Gu Nagusi». Ta ba'da ez ba'dan, Zorionek or dakar bere bigarrena «Limosnatxo bat» biotz-ikutugarri ori. Zorionak danori, ta batez be gaur, Madina'ri. Gu bitartean zain noiz agertuko ete-dan goi-goian «Kresala» koen «Goratzea» izenez eta egitez orrenbesteren jabe da-ta.

Zein ete-dozu zeure «Udako Anestia»? Ikusi emen berago, bete ta ebagi (edo AGUR'ak osorik gordetzen ba'douz, beste ingorri baten jarri berori) txartela ta bialdu arin-arin, zure aukerea zein dan jakin gura dogu-ta, ortik, gure abeslari ta eresgilleeri Erriak maite dabezan bideak zeintzuk diran jakinerazteko.

KANTA BERRI

Bete da Abesti Barrien leiaketa au be, ta aor abesti pillo polita entzun eta ausnartzeko. GURIA, bilbotar Erkiaga ta Gargallo jaunak egin dabena, garaille, ta ezpai bage gaiñera, onena ziur asko. Abesti onetan bakarrik etorri dira bat, biak, erria eta epaimaia, ta txapeldun aukeratu dauskue. Zorionak! erriari, epaikarieri, antolotzaleeri ta egilleeri.

Ona baiña, urrengoen artean ez dira aukerak bardin izan. Erriak autarki bidez emonak, epaimaikoak ankazgora jarri dabez. Ta gure galdera auxe: Norentzat dira abestiok, erriarentzat ala geroagoko ereslari jakitunak aztertu dagiezan, apaletan gordetzeko?

Beste kezka au be egia da: autarkiz aukeratzean ezin izan dira danak danean batera entzun eta aukeratu, ta uri bakoitzean bertakoari autarki geiago emotea be bai. Esate baterako, «Kezkati» ori Azpeiti'n aukeratu bear izan ba'zan, zenbat autarki geiago izango ebazala uste dozue? Ordoki abeslariak berak onenetarikoa dala uste izan dau. Edo, Ondarru'n aukeratu izan ba'ziran, zenbat ete «Bai ta Ez» ek?

Ba-litzake, orrelakoegaitik epaimaikoen aukerea obea izatea. Emendik ziurki zati baterako eztabaida datorkigu; Erriak erostean eta eskatzean emongo dau azken-epaia. Ara orain Epaimaikoen aukerea eta ondoren erriaren autarkiak:

1.—GURIA, Gargallo-Erkiaga, 2.774.
2.—UDABERRI, Iturria, 1.738, ta idazkeraren lenen saria.
3.—BAI TA EZ, Ureña ta Zubikarai, 1.556.
4.—NERE MAITEARI, Aranburu ta Anitua, 2.415.
5.—EUSKAL MENDIETAN, Miguel A. Arbea, 1.861.
6.—KEZKATI, Jose Ma. Altuna, 1.782.

Dana esateko, emen jartzen doguzan autarkiak Donosti, Iruña, Gazteiz eta Bergara'n jasoak dira, besterik gabe; esan dogunez, azken egunekoak danori aldatu eben.

ASTI'TAR PERNANDA

UDAKO ABESTIA

.....**abestia udarako aukeratzen dot.**

.....**abeslariak abestutakoa.**

Nire zuzenbidea:

Izena:.....

Txaidea:.....


Uria:..... (.....)

Arren bialdu egizu txartel au beteta, ona:

UDAKO ABESTIA

Apartado 1148, BILBAO

ERROMALDE



Egia esateko, orain iru illabete baiño ez dira Jaunak gurartetik eroan ebala Zuluaga'tar Erromalde, arrazko jotaille gerenengoa, baiña berak, andere alai zintzo orrek itxi euskun utsunea geroago ta andiagoa oartuten dogu erri-eresi zaleok, ainbat eta geiago euskal-jaiak ugaritu diran aldi ontan. Ori dala bide, berataz zertxobat AGUR'en idatzi barik ezin gintzazan geratu, naita besteren baten zerbait idatzi ba'gendun be bera il zan igarotako Orrillean. Ondo irabazita eukan emakume euskeltzale arek guk esan daikeguna baiño geiago be.

Idazlantxo au asi baiño len baiña, Erromalde zanaren Joseba senarra ta seme-alaba adizkedeengana zuzendu giñan, beratzaz idazten dogun onetarako ziurtasun andiagoa izateko. Zertarako zan gure ikerraldi ori esanaz, asi giñan itaun batzuk egiten:

—Joseba, gaztetatik ezagutzen neban Erromalde gure erri ontan, baiña galdakaotarra ete zan jaiotzaz?

—Arteta auzunean jaio ta azia zan.

—Beraz, gaztetatik ezagutzen zintzazen?

—Bai, alantxe zan, ia auzokoak be ba-giñan-eta.

—Gazterik ikasi ete-eban Erromalde'k arrazkoa joten, eta norengandik?

—Bai, gaztetxutatik ikasi eban, bere amagandik lenengo eta gero, bere neba zarragoagandik, biak izan ziran pandero jotzailleak eta, neba gaiñera auspojotzaillea be bai.

—Zein ereskiñi, auspo, alboka ala bolingozodultzaina'ri laguntzea izaten eban maiteago?

—Edozein jotzailleri laguntzen pozik bera, baiña auspoari laguntzea erreztxuagoa izaten da-ta, ba'litzake orrekin naiago izatea.

—Danok dakigunez, arrazkoa jotea maite eban, ta orregaitik, bear ba'da, jotzaillerik onena zan Erromalde. Olan izanik, Euskalerri guztian eta Europa'rik geienean ereskin ori joten ibilli zan, zelango jaietatik eta nondik ikusi zendu pozen etorten?

—Alderdi guztietatik etorten zan pozik, batz bere euskal-jaietatik, baiña benetako pozez, ziñesu eziñik, Galestarren Llangollen'era gure erriko «Andra Mari» taldeakin joan eta Europa'ta folklore-taldeen artean bigarren saria irabazi ebenean.

—Ez zan izan gitxiagorako be, Euskalerrirentzat lortu eben goralpen a, gure Erria ta ber oiturak maite doguzan guztiok poztu giñan ango Erromalde ta «Andra-Mari»ren goralpenagaz. Zuon emazte ta ama Erromalde ezagutzen gendun guztiontzat oso bizkorra, izketa argiduna ta alaia zan, etxean be orretarikoa izan ete-zan?

—Bai, benetan zintzoa, argia ta guztiz alaia, azkenez betiko eroan euskun gaixo zital orretan be, iñoiz ez geuntzan umore edo gogo txarrik eukan igarri, alai ta abeslari egoalako beti... zelango utsunea berak itzi dauskuna, betiko alde egin ebanetik ona!

—Alantxe da baiña, Jainkoak be emen dauko guzanik onenak bearko ditu-ta, betiko Bere magalpean eukiko al dau Erromalde. Beste zerbait bai Ojanguren-Zuluaga sendia?

—Gure eskar onak AGUR'ekoai ta zuri beragaz gogoratu zarielako.

—Orretara esango dogu.

BASA-JAUN

KANTA BERRI

AZKEN SAIOA ARRASATE'N

ARRASATE, ba-da emen aurrera giroa, lan egin naia. Aurten, Donibane egunez bertan nintzan ni be, an dodan adiskide maitekor —Juanito Arrizabala'k— deituta.

Kanta berri oneik aurretiaz Donosti, Iruña, Gazteiz eta —Bilbao'n ezinda— Bergara'n egiñak zituen euren ekiñaldiak. Oraingoa, beraz, Euslalerriko kanta barri egilleen I Sariketaren azkena. Arrasate'ko «Zaldibar» pelota-leku zarrean, gabeko 10-30'etan ospatua. Antolatzailleak: Loiola'ko Erri Irratia, Arrasate'ko J. D.'ko «Danok» euskal jakintza taldea ta Arrasate'ko Udal-etxea, Lankideen Auzo Aurrezki Ontzia'k babestuta.

Txukun dago pelota leku zarra, antxina bateko gerkarren antzoki antzera, edo-ta Zubero'n gure euskal pastoralak emon oi zituen tokiak lez apaindurik. Amar t'erdietarako bete da beinbeiñeko antsokia, ta egiz bete be. Ba-da berbaro ta bizitasunik. Astera doa jaia.

Sei abestirik onenak aurkeztuko dira: *Kezkati, Nere maiteari, Udaberri, Euskal mendietan, Guria* ta *Bai-ta-ez*. Onek seirok dira sariketarako; beste seirak: *Jolas leku baten, Dantzatu daigun, Nere udazkena, Maitatzen, Zergaitik* eta *Gure gaztedia* abestuko diran arren, eta birritan alan be, ez dira sariketan sartuko.

Abeslariak oneik dira: Loli Ordoki, Jose María Larrañaga, Estitxu, Nino Remuñan, Donato Larrañaga, Antzine Bedialauneta, Migel A. Arbea, Amaia Aulestia, Xabier Zamudio ta Zorion Egileor. Onei lagunduko dautsena, Azpeiti'ko Unai Irukotea.

Amaikak amabi minutu gitxiago dira. Gertu dago guztia, ekiñaldiari asiera emoteko. Ederki oso jo dabe, ta abestu, asierako eresia. Sei abesti onenetarikoetatik «*Keskati*» dator aurrera. Izkia ta doiñua Jose Maria Altuna'renak dira. Birritan abesten dabez sei onenok be, eta au Jose M. Larrañaga'k abestu dau lenengo txandan; bigarrenean, ostera, Loli Ordoki'k Maite kanta da.

Ederto abestua. Ba-dau euskal kutsu doiñuak, lenengotan batez be, baiña gero indarra ta kutsuz motelduz doa. Seigarren saria eroan eban, ots, amar milla pezeta.

«*Nere maiteari*». Luis Aranburu'ren doiñua ta Pedro Anitua'ren izkia. Izkia ta musika biak dira poliki egiñak, eta euskal arnasa dabenak. Estitxu'k abestu eban lenengotan eta Nino Remuñan'ek bigarren txandan; biok ederto. Laugarren saria meresi izan dau, ots: amabost milla pezeta.

«*Udaberri*». Jose Iturria'ren izkia ta doiñua. Izkiak onela diño:

«Udaberri, berri onak kuku jaunak dakizki.
Kuku jauna, esaiguzu udaberri ba-dala.
Erri maitean bait dut nik artu nai
bizitza dutan euskal giroa.
Giro txarra luze doa zoritxarrez guretzat.
Udaberri dugu ames euskal giro argi bat.

Donato Larrañaga'k abestu dau lenengo ta gero Estitxu'k eurak egin oi daben lez. Izkiak ba-dau irudimena, lore-pitxiz betea. Izki oneri eman dautsoe letrarik onenarentzako egoan saria: amar milla pezeta. Doiñua, ostera, ez da oso-osoan euskalduna, atzerri sunda geiegi bait dau. Alan be, bigarren saria merezi izan eban, ots, ogetabost milla pezeta.

«*Euskal mendietan*». Migel A. Arbea'ren izkia ta doiñua. Poematxo onek ba-dau bere gatz berezia, naiz ta trakets samar taiatua izan, bertso-lege aldetik diñot. Doiñua be euskal kutsuzkoa da, baiña lagun-musika, ots, orkestarena, basatia begitandu yat. Aintzine Bedialauneta'k abestu dau lenengo, ta Migel A. Arbea berak bigarren txandan. Bostagarren saria, au da, amar milla pezeta merezi izan ditu.

«*Guria*». Franzisko J. Gargallo'ren doiñua ta Eusebio Erkiaga'ren izkia; Donato Larrañaga'k lenengoz ta Loli Ordoki'k bigarrenez abestua. Maitasunezko poema ariña; doiñuz be euskal giroa dau. Asiera surmur goxo, misterioz betea; azkenak, barriz, zantzo ta irrintzi bizitan Zugarramurdi'ko akelarre dakarsku gogora. Berau dogu lenengo sariaren irabazle: berrogetamar milla pezeta.

«*Bai ta ez*». Agustin Zubikarai'ren izkia, Biktor Ureña'k doiñututa, Olerkiño bizkorra, euskal arimaduna. Doiñuak, alan be, ez dau olako euskal kutsurik. Opera antzekoa dozu. Amaia Aulestia'k abestu dau lenengo, ta Xabier Zamudio'k bigarren txandan.

Abeslari onenarentzat egoan saria, azkenez, kantari guztien artean banandu dan arren Donato Larraga'ri emon dautsoe. *Bai ta ez* onentzako izan da irugarren saria: ogei milla pezeta.

Maikoak sari-banaketea erabagi bitartean, beste seirak, sariketatik kanporakoak abesten dabez, birritan oneik be. Madina'k gero bere ekiñaldia, ta sari emotea. Len-saria artu dauana barriro abesten da. Ordu biak ogei gitxiago da, antzoki dizditsutik urtetean, euria asi da.

Kaleko gazte geienen eritxia: luzeegia, ta abestirik geienak euskal kutsurik arean bere ez. Eta euskal kutsu au naitaezkoa zan, Euskalerriko abesti berri saioa dogun ezkero.

A. ONAINDIA

AGVR

II URTEA
9 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - GARILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

IBILKETAK

Gizona beti izan da ibilten zalea; batzuetan, gero barriro bere tokira etorteko eta beste batzuetan bizilekua aldatzeko. Antxiñako artzaiñak euren ardiakaz lurraldez ibilten ziran aberentzako janari ugariagoaren billa. Eta gaur be olakorik egiten da, batez be neguko otzai igez egiteko.

Oraintsuago beste zio batzuk, sakonagoak, izan ditu gizonak lurraldea aldatzeko. Zenbat joaten diran, batez be Espaiñaldetik, Alemaniara! eta ez ibilterako zaletasunez, lanaren billa baiño. Beste batzuk Irakastetxe nagusietara ikastera joaten dira. Beste batzuk, au zori txarra, gudak egitera be joan bear izan dabe: antxiña Cuba'ra, Tetuan'era, Vietnam'era... Baita, au pozgarriagoa, Barri-Ona zabaltzera: Zenbat mixiolari euskaldun ludi zabalean! Ba dira, baita, santutegi ospetsuak ikustera joaten diranak: Lourdes'era, Fatima'ra, antxiñagotik Compostela'ra Erroma'ra edo Jerusalen'era, edo urrago geratu gura dabenak Arantzazu'ra.

Baiña gaur ibilketak egiteko zio berezirik ez da bear: ibiltea bera da naikoa ziorik: beste lurralde batzuetako izaerak ikusi ta entzun, artuemonak alkarregaz, gizon lez, izan... ibilli, ibilli...

* * *

Ibilketa-zaletasun au, eta gaur zabaldu dan bestean, egokia ete da?

Nik baietz uste dot.

Egia esan, urte guztian aurreratuko diru apurrak, bear ba'da, orretan eralgiten dira. Ori alderdi txar bat izan leiteke.

Baiña lurralde ezbardiñetako gizonak alkar ezagutzea eta gero, ortik, alkar maitatzea, oso ederra da.

Geiago oraindiño: Bere etxetik eta bere lurraldetik urten ez dauan gizona, geienetan buru itxikoa izaten da. Berea baiño ez dau ikusten. Eta ibilteaz zabaldu egiten da. Antxiñako zarrak esaten euskuenez: Mutil, ibilli ezkero ikasi egiten dok!

Gero, ludian ain oitura ezbardiñak diran ezkero, ibilliaz oiturak aintzat artzen ikasten da eta batasun batera be epe baten eldu geintekez. Ori bakotxaren nortasuna galdu barik egin ezkero, gauza ederra benetan.

Oitura txarrak be zabaldu leitekez, egia, baiña orretan bakotxa arduraz ibilli bear, ona artu ta txarra itzi egiteko.

Ibilketa au ona da, baita, betiko giroa itzi eta beste baten biziaz, atsedena artzeko be.

* * *

Euskalduna ibiltaria izan da beti. Geure baztertxua iñoz ez dogu itzi, baiña bai munduan geure anaiak aurkituten doguz. Edonora joan eta an aurkituko dogu euskaldunen bat. Batzuk Ameriketara lan egitera, batez be aspaldion artzaiñak.

Eta erbestetik etorten jakuzan ibiltariak be ugari doguz Euskalerrian. Iparaldeko zatia ibiltariz beterik egoten da, batez be udaldian: gogoratu Biarritz, Donibane Loitzun, Baiona, Orreaga, Donibane Garazi... Baita Egoaldeko zatian be, batez be gure ondartza zoragarrietan; gogoratu Donosti, Zarautz, Zumaia, Deba, Lekeitio, Mundaka, Sukarrieta, Bakio, Plentzi...

Benetan bazter ederrak ditu gure Erriak, itxas-ertzean eta legorrean. Egun illunak eta euritsuak be izaten dira, baiña geienetan gure giroa baiño obarik non? Lan-ederrez ez gara ugariak, Naparroa kendu ezkero, baiña jan-edanerako gure maiak oso orniduak izaten dira.

Ete dago geuretasuna galtzeko arriskurik erbesteko ibiltari asko etorriaz? Barrutik bizi ba'gagoz, erbestekoak artuaz biziagoak egingo gara, baiña barruko bizitza galduez ba'doa, au jazo leiteke ipar-aldean batez be, orduan arriskua agertzen da.

Euskaldunak, udea da ta ibilli, ezagutu ludia, baiña lenengo zuen Erri osoa ezagutu.

AGVR




Darwin'ek berak asmatu ezingo eban aldaketa

IXIL ETA BIZI

Itz oneik entzutean Bilbo'ko euskaldun guztiak konturatzen dira zeiñetzaz diñoguzan. Anai Iñaki Olabeaga sailletar ospetsua da gizon goragarri ori. Donostiarra bera, lekaide zintzoa ta euskaltzale purrukatua. Gazte-gaztetatik sailletar egin zan eta bai Gipuzkoa'n, bai erbestean eta abar irakasle argia izan da. Urte askotxo dirala, Bilbo'ko «Santiago Apostol» deritzan ikastetxean ikasketerako liburu-arazoetan lan egiten dau. Euskal liturjiaren alde berak egiten dauan lan goragarria, ia zazpi urte oneitan, gaur adierazi nai neuke. Apala dalarik asarratuko yat, baiña ezin ixildu nik beraganako eskarrona agertzearren.

Erroma'n liturjia erri-izkuntzetan egitea baieztu ebenean, Bilbo'ko San Anton eleizan Bilbo guztian lenen ipiñi zan euskal meza bat. Ori bai, askoren asarreagaz, baiña euskaldun geienen poz eta txaloakaz. Meza ortara etorten zan igandero anai Iñaki; mezako abestiak eta abar zuzentzako egokia izango zala ta, deitu genduan lan ori egiteko. Ta bai berak pozik eta bereala artu zeregin ori. Ia zazpi urte igaro dira egun artatik gaur arte ta eten gabe jaiero-jaiero or dogu euskal-mezan Iñaki anai goragarria. Meza aurretxoan abestiak irakasten ditu ta meza bitartean argi, kementsu ta ernai oarrak, abestiak eta abar zuzentzen ditu. Baita bertsolari ona ere izanik, bertso ederrak egin ta abestu erriaren otoietan ete Jaunartzea gertatu ta eskerrak emoteko.



Bere lan-gelako baztartxo batean ainbat eta ainbat lerro olerki ederrez beteak or izango ditu ainbatean. Eurak argitaratzea ona izango litzake euskal-gogoentzat. Esan geinke bera izan dala Bilbo'n euskal liturji-abestiak lenen eta geien irakatsi dituana. Ez San Anton'en bakarrik, gerotxoago baita Indautxo'ko Karmel-eleizan ere bera da zuzendari. An ainbat eta ainbat eleizatara deituten dautse illeta ta beste zeinbat eleizkizun zuzendu dagizan. Ta bai ederto zuzendu ere ta abestu eleizkizun oneitara doazanak anai Iñaki'k ondo irakatsiak diralako. Izan ere, euskaldun eleiz gizon ta beste asko, eleizkizun orreik ikustean, arritzen dira ain ondo ta errikoi egiten diralako. Au da anai Iñaki'ren lanik gorengoa.

Nigaz ez asarratu, anai Iñaki, ordain gabe egin dozu zeure lan andi-eder ori ta nik eta beste askok zor yatzun eskerronezko saria emon nai dautsugu. Donostiarra izan arren, Bilbo'koa ere lan andia zurea ta biotzez egiña. Badakigu Jainkozalea ta euskalzalea zarealako egin dozula lan ori, zein Gipuzkoa'n zein Bilbo'n zuretzat guztiok Jaungoikozale ta euskaltzale garealako. Zuri jarraituz agertuko al dira or ta emen bai lekaide ta bai erri-gizon asko euskal-liturjia argi ta ongi sakondu daiten gure erri maite ontan.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

SORKALDEKO AIZEAK

Azken egun oneitan sorkaldeko barriak datorkiguz, batez be, urreko sorkaldekoak, Israel eta arabeen arteko burrukarenak. Amoituko ete da iñoiz guda zital ori?

Ez da erreza izango, bear leukenak amaitzera laguntzen baiño sua piztutzen geiago alegintzen dira-ta.

Nortzuk arrazoia? Bear ba'da osoosoan iñork ez, baiña ez dago zertan ukaturik, ni israeldarren alde nago. Palestinarrak euren sorterritik urtetzen beartuak izan dirala?, bai, baiña gizaldi batzuk lenago judutarren erria sakabanatu eben beste batzuk, lurralde berberatik indarkeriz erbesteraturik. Beraz, gure ustez israeldarrak, eurena izan zanagaz jabetu baiño besterik ez dabe egin.

Zer eskatzen dabe mundu guztian sakabanatuta bizi edo erdi-bizi diran judutarrak? ONU'k gizonaren eskubideen artean onartutariko bat betetzea: au da, erri bakoitzak norberaren aberria aukeratzeko eskubidea.

Palestinatik urteneko arabeen arazoa, inguruko erresuma edo errepublikak nai izan ba'lebe konponduta egoan baiña Libano, Siria, Egipto, Irak edo Jordaniak ez dabe ori nai, euren erri atzeratuak israeldarrenganako gorrotoagaz lausotzen ditue eta Arabeen eskuetan lurrak basamortuak izan dira naiz ta israeldarrak baratz biurtu. Len esandako laterri orreik erriaren aurrerakuntza barik anai arteko griña ta burrukan diardue. Begira bestela Jordaniako ixilleko gudeari; Libia, Siria, Egipto edo Irakeko alkar erailtzari, ta Marruekos'eri.

Egun oneitan Marruecos'en Hasan II kendu nai izan dabe; orain ondorenak ikeragarrizkoak izango dira. Arabeekin nor piatu leike? Gaur ikusten dozuz, telebizioan, alkarreri mosuka... biar sartuko dautse lepotik algea. Es dira ez, nere gogoko.

Israeldarrak, ordez, goragarriak dira. Millaka doaz urtero euren aberri barrira, orretarako euretariko askok ondo bizi izan diran sorlekuak itzirik, abertzaletasun utsak bultzaturik. Israel gaur, batzuk salatzen daben erara kapitalismoaren menpeko laterri bat da? Bai, zera! Nik bestera esango neuke, demokraziaren bidez an egin diran sozializazio experientziak jakingarriak dira ta gaiñeztu dabezan arazoak, aundiak.

Baiña judutar guztiak ez dira Israelera joateko euren buruaren jaube. L'Expres frantziko aldizkarian Yefim Sevela orainarte erusiar ziñe-gizonari egin dautsen alkarizketea irakurri dogu. Judutarra bera, beste 23 lagunekin Erusia'tik urtetzea lortu du.

Orretarako Soviet Supremo deritxon Jauregian sartu ziran baimena lortu arte, aurretik mundu guztiko izparringiak arretaz jarririk. Kosiginek, munduaren aurrean txarto ez gelditziarren baimen ori emon dau. Alkarrizketan diñoanez judutarrak meperaratuta bizi dira Errusian ta bildurragaitik izango ez balitz, irutik batek urtengo leuke berealaxe ta, iru miloi dira gitxi gora-beera. Zergaitik ez dautse izten?

Aldi baten euskaldun gazteen artean aintzakotzat artuak izan ziran judutarrak ta Exoduz idaztia geienak irakurtzen eben, israeldarren ekintza goralduaz. Baiña egun batetik bestera mundu guztiko laterri komunistak diruari salduak bezela salatzen asi dira ta len jatorrak ziran israeldar orreik gaur kapitalismoaren morroi bezela agertu nai dauskuez. Jakiña! emengo «gorrizka» orren morroiak bere judutarren aurka dagoz naiz ta eurenlengo iritzien aurka egon. Olaxe da mundua ta orrela eldu bakuen burua. Baiña mundua gora-beera, israeldarrak aurrera doaz. Ba dakite anaien laguntza bakarrik izango dabela, anaien laguntza ta abertzaletasunak eta bizi naiak emoten dauan kemena, Israelen gitxienez askatasunean bizi dira eta.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

"EGIN" eroan bear daben esaldiak

EGIN berbeak iru eginkizun daukaz esaldian; euretatik bat esaldiko atalik *garrantzitsuena* aditza danean au nabarmendu daitean bere laguntza emon, aditzaren otsean esanaz.

Ba-dakit au ondo ulertzeko azalpen geiago emon bear dana ta ala ta be bat baiño geiago aoa bete agiñekaz geldituko litzakeana. Baiña idazlan au luzeegi atarako litzake ta urrengoan ekingo dautsagu barriro.

Gaur EGIN sartu bear danean sartu barik laga ta uts egindako esaldi batzuk agertuko dodaz; jakiña, alboan, zelan ondo esaten dan jarrita.

Emen dakardazan utsdun esaldiok aldizkari ta liburuetatik jasoak dira; batzuk gorengo maillako idazleai artuta. Jaungoikoa izan ezik akats bakorik ez dala onek esan nai dau.

idatzi dabe

1.920'an sobietarrak agindu zuten berak nagusitu baiño lenago indarkerian Errusia'k egindako itzarmenak (trataduak) ezereztuko zituztela.

Baiña Eleizan eta Marxismoan galdu eben fedea.

...Oteiza ara igo zanetik nere Arantzazu zaletasuna aunditu dala esan leike.

Estadu Batuak oraintsu aleen neurriak beratu ditu.

Etziñan ba zu iritzi berdiñekoa orain urte batzuek bertsolaritzaren tonua obetu eta jaso behar zala zeniozunean.

...erriko gizonak uste du, nunbait, beste arraza bateko laguna dela jakintsua, eta aren aitzinean auzpeztu bear dala.

Den lurrik oberenak ere bear du apaindu

Berriari bere ematen zaiolarik ere, arestiko berrikeriak (gure arteko «zetoztene» ek eta) salatu behar genituzke, hobe-ustean dabiltzanak kontura ditezen.

Ez nion arkitzen lan honi baiña egin behar nuen.

Guido ukatu da onartzen indar armatuen sekretarioaren kargu ustea.

Langilleak horrelako egoerarik ez dute ontzat ematen ta jeikitzen dira.

(1) **idatzi bear da**

1.920'an sobietarrak agindu zuten berak nagusitu baiño lenago indarkerian Errusia'k egindako itzarmenak (trataduak) ezereztu «egingo» zituztela.

Baiña Eleizan eta Marxismoan galdu «egin» eben fedea.

...Oteiza ara igo zanetik nere Arantzazu zaletasuna aunditu «egin» dala esan leike.

Estadu batuak oraintsu aleen neurriak beratu «egin» ditu.

Etziñan ba zu iritzi berdiñekoa orain urte batzuek bertsolaritzaren tonua obetu eta jaso «egin» behar zala zeniozunean.

...erriko gizonak uste du, nunbait, beste arraza bateko laguna dela jakintsua, eta aren aitzinean auzpeztu «egin» bear dala.

Den lurrik oberenak ere apaindu «egin» bear du.

Berriari berea ematen zaiolarik ere, arestiko berrikeriak (gure arteko «zetoztene» ek eta) salatu «egin» behar genituzke, hobe-ustean dabiltzanak kontura ditezen.

Ez nion arkitzen lan honi baiña egin «egin» behar nuen. (Olantxe: bi bidar «Egin»).

Guido ukatu «egin» da onartzen indar armatuen sekretarioaren kargu ustea.

Langilleak horrelako egoerarik ez dute ontzat ematen ta jeiki «egiten» dira.

(1) *Oarra: Esaldi orreitan ba-dagoz uts geiago, baiña oraingoz ez naz sartzen eurakin.*

Idazlan au eginda bialdu bitartean (illa bi inguru) liburu zar batzuk irakurteko aukera euki dot: «PERU ABARKA» (au lendik be irakurrita nengoan), Iztueta'ren «GUIPUZCOACO DANTZAC», Lardizabal'en «TESTAMENTU ZAR ETA BERRIA» ta Juan Moguel'en «MAYATZ ILLERACO BERBA-ALDIJAC». Liburu oneik irakurten, arrituta itxi ninduan gauza bategaz konturatu naz: antxiñako idazle orreik, nik idazlan onetan aitatzen dodan «egin» ez darabillela; au da, aditza inkiridua danean be bakarrik joaten dala nik emen txarto idatzitzat jo izan dodazanen antzera. Ta, zerbait argitu naian «ERDERISMO» liburua esku artean artuta, aita prai Bartolome'k erabilten ebala zorioneko «egin» ori ikusi dot; ta aita Bartolome bera be ez da atzo goizekoa 1.768 garren urtean mundura etorria da ta.

Beraz, «egin» ez daroen esaldi orreik gaurko euskeran txarto dagoazala bildur barik esan leiteke. Bear izan ezkero urrengoan kontu au argitzen aleginduko giñake.

KAMIÑAZPI

POZAK ETA KEZKAK

EUSKAL-IZENAK.—Pozik ikusten dogu euskerazko izenen ugaritzea, pozago ikusiko genduke baiña, ume orreri, gurasoak euskerea irakatsiko ba'leuskie; dana-dala zeozer da. Baiña azken urte onetan, batzuk ezjakintasunez, eta besteak eurentzat «madarikatua» izan daben gizonaganako gorrotoz, izen barriak sartu dituez ganora barik. Batzuk politak dira ta ondo dagoz, baiña mutillak! Zergaitik «zigor» izena semeari ipiñi? Ala zigorra ete semea? Ta Igor edo Iban euskerazkoak diralakoan? Besteak, Sabin'en guztiak kendu bear dirala diñoe, baiña eurak, bada ez bada, Imanol, Unai, Iñaki, Kepa, Joseba ta abar darabillez etxekoetan... Orrenbesteko gorrotoa ba'dautsazue kendu ta kito! Mañes, Iñasio, Pello ta abar erabilli, ala... guraso burgestxikien dirua lortzeko bear ete-dozuez oindiño?

IKASTOLAK.—Estu-aldi galantak ezagutuko ei-ditue; «pasteleroak» ingurutik kentzen ez ba'dituez beintzat. Erriaren kultura gaiak eta euskal-umeen etorkizuna, erri osoaren eta gurasoen eskubideak dira. Erri osoa danok osotzen dogu, gorriak, zuriak eta «ista» mota guztikoak. Orregaitik, kendu gure izkuntzatik eta ikastoletatik politika usain guztia. Or dabiltza batzuk nastatu naian, eta gero zer? Emakume ganorabako batzuk alperriko eroztaka berandu! Ezkerrak zentzuzko gizonak Madrillen gauzak argitu dituezela... ta ondo. Baiña inguruko lau-katu nastatzailleak, gure gurasoak astintzen ez ba'dituez, barriro bere kalteak ekarriko ditue. Politika ta marxismoa sartu nai dabezanak egin dagiezala eurentzako ikastolak. Gurasoak, itxartu...!

SORAYO.—Lengoan jakin dogunagaz lotsatu gara: Andereiñoak gitxi irabazten dabe; ba-dakigu. Baiña orrez gaiñera illero ogei ogerleko emon bear izaten ditu bakoitzak, mutil gazte bat, aitxaki orregaz, lanik egin barik bizi izateko... zeuk esan irakurle.

Dakigunez, andereiño batzuk «naikoa da» eta «dirua bear ba'dau, lan dagiala» esan ei-dabe, arrazoi aundienagaz. Emakumearen lanetik bizi dan «gizonezkoak» izen itxusia du erederaz: ..... ta kapitalistak ez dirala esan arren ba-dagoz alako burokrata batzuk be gure artean, ikusten danez...

EZJAKIN AUSARTAK.—Euskera gaixoa! Erdelzale amaorratuenak edo euskera gitxi ta txarto dakitenak jartzen ba'dauskuez gaur igarletzat. Ona emen zer irakurri dogun: «alegratzen, importanteena, prestijiatu, sozialki, ekonomikoki, pagatuak, edifizio, exemplua ta abar. Gero baiña, «heziketa» jartzen dabe, ta zergaitik ez «formaziñoa»? Ala, ala mutillak! Ikasi lenengo euskeraz, zuen bilbaino euskalki ori erabilli barik... ala ezin?

IBAI ORIA.—Barandu baiña ez degu irakurri ori, edo Oria oria, bitarteko tar bage; ba-zan ordua, ta ez ingurukoak zalantzean eukitze ura. Erdi bidea aukeratu zun, ta orregaitik orain, bi sotana tartean geratuko omen da. Zerbait zuzentzeko asmoan... Ezetz! sagardo-aldi bat edozeiñi Andoain'go ibai luzean.

PIPER-ZIRI

ZENBAKIAK

Oraintsu ingelesak amarketea edo «sistema dezimala» artu dabe. Jakiña, eurak bakarrik beste zenbaketa batez ebiltzan, eta besteekazko artu-emonak gatxak ziran. Aldakuntza au ez ei da erreza izan, batez be zarrentzat. Baiña apurka sartuez joango dira guztiak eta gero erreztasun bat sortuko da.

Ete dauke gure zenbakiak olako arazorik?

Bai, neure ustez.

Gure zenbaketea ogeiketea da eunera arte. Eta idazkerea amarketa, erdera guztikaz baterakoa. Emendik zenbakiak erabilteko gaiztasun aundi bat datorku. Batetik ogeira ez dago naste aundirik: 11 = amaika, 12 = amabi, 13 = amairu, 14 = amalau, 15 = amabost, 16 = amasei... emeretzi da ezbardiña. Lenengo 1 amarra dala, gero onduan 2, 3, 4... ezarriaz errez irakurten da.

Baiña ogeitik gora dator nastea. Ogei bera zergaitik 2 idatzi, birik iñondik ez daukala? 30 ikusten dogunean, irurik iñondik ez dogu esaten, ogei eta amar baiño. 40 ikusten dogunean, laurik ez dogu irakurri bear ber-ogei edo bi-ogei baiño. Eta orrelan eunera artean. Idazkera onek gaiztasun aundia dakarsku.

France-eraz be ba dago onelako arazoa: irurogeira artean amarketa darabille eta irurogeitik eunera ogeiketa guk lez. Baiña idatzi danak amarketaz. Esaterako: guk lez lau-ogei, quatre vingt esaten dabe eta 80 idatzi.

Zer egin geinke zenbakian erreztuteko? Bide bat amarketara sartzea izan leiteke: ogei ta amar = iru amar, berrogei = lau amar, berrogei ta amar = bost amar... Beste bide bat idazkera barri bat atera. Baiña onetara, geure artean erreztuarren, bestekaz artuemonak gaiztuko geunkez.

Irugarren bidea, gagozan lez jarraitu. Onek erdel zenbaki itzak sartzen lagunduko dausku. Gaur be asko entzuten dogu: Kuarentaidosko kintoa naz, nire aita zinkuentaizinkoan il zan... **Au erdel-eskolen indarrez izatea be ba leiteke.**

GAMIZ

EUSKERA GAXOA! ZELAN OSATU...?

Kritika kanaletik
informatua naz
dalako *Okultismo*
misteriosoaz.

Konkretuz ori zer dan
ez dot nik *sentitzen*,
baiña *intelijenziz*
zerbait dot ulertzen.

Erreportak diñonez
au da gaur *prolema:*
erreformatu bear
Euskera lenena.

Teknika modernoak
gogoan artuta,
abstrakto antzekoak
industriz itxita,

H bat or ta emen
ipiñi ezkero,
Euskera *modernoa*
lortuko da... gero!

Absolutamentean
ori egin ezik,
egundo bere ez da
Euskel-batasunik.

Errealismoa da
guretzat legea
naiz ta guztiz ondatu
Euskera *maitea!!!*

Euskeldun zintzo batek
entzun dabeneko:
—Zoratu egin al az
olan idazteko?
ori Euskera ba'dok,
itxi eik betiko—

Nik:

—Ezeik uste, gizona
nireak diranik
ez yakiat, yakin be
ainbat Euskera'rik.

Itzok agertu dozak
moldako letretan,
euskel izena daben
Aldizkarietan.

Euskeldun zintzoak:
Olan ba'dok, obe dok
itxi Euskerea,
eta zorioneko
Alfabetatzea.

Nik:

Onen antzekoa dok
esatea ori:
«Estula osatzeko
lepoa ebagi».

Ba-dok bide oberik
Euskeraren alde,
benetan gura ba'dok
izkuntz ori maite:

Itz eta idaztean
garbitzen yokatu,
ta esakun yatorrez
guztiz aberastu.

Euskeldun zintzoak:

—Ori dok bide zuzen
ta benetakoa,
orretan eugaz ñagok,
«Eutso bostekoa».

GABIREL

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTEA

BIZI BETI EUSKEREA!!

Ez, itz oneik ez dira Zorion Egileor'enak bakarrik; euskaldun gaztedi zintzoak be esaten ditu. Euskera dogu ama, erriaren ikurriña ta edertasunik aundiena. Baiña euskerak be, bere kezkak ditu. Eta ori jazotea gauza ona da, alan, gure izkuntza bizi-bizirik dagola ikusten da-ta.

Eta zer da euskerakaz jazoten dana?... badakizue danok gitxi gora-bera. Eta zelan izkuntz ori gurea dogun, ezin dogu burua aldendu ta «Or konpon daitezala!» esan. Zeozer egin bear da, bide zuzena jarraitzeko ta euskerea goraltzeko. Eta lan au gazteena dogu batez ere. Zeozer eskuratuko al dogu?... nik baitz uste dot egizko euskaltzeleak ba'gara.

Askok euskerea batu nai dabe, izkuntz bat euki: Erri bat, izkuntza bat. Eta orren aurka ez noia. Itxaropen aundia dot batsunean, baiña *Euskeraren Batsunean* eta ez nai daben batasunean (?). H'ri baietza edo ezetza emotea ez da garrantzi aundikoena; euskera zaintzea baiño. Ortik gauza asko irakurten dodaz, eta sarritan itauten naz: «au ete da batasuna?».

Gauza bat da batasuna egitea, eta bestea euskera zapaldu-naia. Zergaitik gure izkuntzak dituzan itzak baztertu naia?... zergaitik itz barriak gure artean sartu? zergaitik *Egizko Batasuna* egin bearrean, erdera euskerakaz alkartu-naia? Egiz, ezin dot ulertu!

Erriak «kaballu» edo «bentanea» esaten ba'dau... zergaitik itz orreik on-artu? Zeiñek irakatsi bear dautso zeiñeri; erriak idazleai ala idazleak erriai?

Ez!, olako batasunik ez dot nai. Euskerea ez da jolas egiteko jostaillu bat; gaur erabilteko eta biar H ori kentzeko. Eta gazteak lan asko egin bear dogu euskerearen alde. Ez gaitezen zentzungabeak izan! Ez da asko, gazte bateri entzun neutsan: «Bai mutil, Euskal-Erri'an be ba-dagoz idazle atzeratuak. *Puritanismoak* eta euskal itz asko zaartu dira. Orain, H'rik ez ba'dozu erabilten, literatura zaarrean zabiltz. Oitura aiek igaro ziran, orain *praktikoak* izan bear gara. Baña idazle orrek ez dira konturatzen; au dek gauza *arrarua*».

Gauza onek entzutean..., zer esan? Oba ixiltea...; zer egin? Burua ez galdu gaurko oitura barrietan! Orain doguzan idazle gazteen artean be, naaste aundia dabil eta asko galduta dabiltza orko bideetan.

Gazteok! Gure eskuetan dogu euskerearen bizitza, eta sendagille onak nai ditu gure amak. Zer-egin zailla dogu euskerearen etorkizunean. «Puritanoak»?: Ez!, baiña bai euskaldun zintzoak!

Betiko Euskerea nai dogu: orain arte entzun doguna; erriko izkuntz garbia. Egizko *Batasuna* etorri bitartean, euskaltasunik aundi eta gogorrena euki bear dogu.

Ta askenez, Zorion'ekin alkarturik esaten dot: *Bizi Beti Euskerea!!*

Nundik zatozen, ez dakigu;
Nun jaio ziñan, ezin esan.

Euskaldun danok zu zaitugu;
Pozez gordeta biotzean.

EZKAURIATZA'TAR XABIER

NUNDIK NORAKOA

VIII.—IZADIA TA GIZADIA

Artega'n, alan dau izena, erderaz Castillo y Elejabeitia esaten dogunak, Ama Izadia, ama ederra, genduan uneoro inguruan. Basoak, mediak, zelaiak, soloak eta baserriak nunnai. Jendemodua ere alakoxea. Laua, sendoa, tolesgabea, euskalduna, goitik berakoa. Jaietan eta eguen arratsaldeetan sarri egun erdirako ta noizean bein egun guztirako urteerak egiten genduzan. Igorre, San Kristobal, Arantzazu, Lemoa, Ugao, Zeberio, Zeanuri, Undurraga, Dima, Lamindano, Oba, Balzola, Upo, Areatza: orra orduko ibillaldien izen batzuk. Bidean beti euskaldunak aurkitu oi genduzan, askotan bearrean ziardutenak. Bein mendira ezkero, batzuk abiak topatzen, zugatzetara igotzen-eta jardun oi genduan. Jakiña, erdaldunak, asfalto utsean bizi izandakoak, minberaegiak izan ta txutxuputxuka ari ziran geien bat aste bitarteko kontuak eta guzurrak alkarri jakiñarazoten. Igandeetan, askotan, erriko meza nagusira ta antxe euskerazko itzaldia entzuten geutson Urruzuno'tar Luken apaiz jatorrari. Gure etxeko irakasle batzuk ere sarri urteten ziran itzaldiak edo aitortzak egitera, errira ta auzunetara. Iruretagoiena zarauztarra, Estonba irundarra, batez ere, euren artean. Mendi-ibillaldietan ere Estonba askotan aritzen zan euskeraz baserritarrak topatzean. Iturri ugari-garbiak bide bazterretan, zugatz oparlak mendi-egaletan ta tontorretan ota-sasiak, lore to txorien atsedentokia. Mendi-zelaiunetan basa-beiak eta zaldiak eta beorrak, irrintzika jauzika ta guri igeska. Errekatxo garden abeslariak sakonetan ta zeru garbi ederra alde guztietan. Neguan edur andia ta uda-aldian igali gozoak edonun. Askotan mendi-tontorrean ota-bedarragaz arreta, txitxiburduntzia egiten genduan etxetik ekarritako askariagaz. Illuntze-aldean agurtza esan ta itzalditxo bat egiten euskun Estonba'tar Imanol apaizak, batez ere. Axe zan bake ta zoriona mendi-mendian, Jaungoikoagandik ur, Izadiagaz bat egiñik, gogoa zerurantza ixurtzen ta zerua gure barnera ekartzen! Ainbeste bidar ikusi ta ibilli genduzan toki aiek, neri beintzat, muiñetaraiño sartu yatan Izadia ta barne-barnetik sortu eder-miña, egun arte. Atseden-aldietan euskaldunak nebazan nik gogoko, besteak baiño geiago. Len ere, alakoxe munduan bizi ta ibillia bai nintzan ta oraingo munduaren seme jatorrenak eurok ziran. Bakunak, zintzoak, tolesgabeak, lagun onak, berba gitxikoak eta berbako gizonak. Besteak, barriz, berba-lapiko, itz-ontzi samarrak (Quevedo'ren «Habladores a cantaros»), min labanekoak, andiki-usaiñekoak, azal meegiakoak. Neri ez yatazan bat ere gogoko izan, egia.

Eskoletan euskaldunak atzera samar ibilli oi ziran lenengo urteetan erdera gitxi edo ia bapez jakinki. Erdeldunak, ostera, erdera polito ekien, berea zan-eta lasai ta arrotuta ibilli oi ziran besteen aurrean. Aiek, gizajoak, lotsak edo gitxiago ziralakoak atzeratuta. Seminarioeguna etorrenean, baiña, euskaldunak bialtzen ebezan, zorro bat aldean, baserrietara eskea egitera. Ondo baiño obeto etorkioezan nagusiei. Gero jakin dodanez, orduko erretore jaunak, Isidoro Larrauri'k (jauna?), erderaz ez ekialako bat baiño geiago bota eban etxera, Ikastaroasierako itzaldi batean zera esan eban: gure errietako etxeak, parrokiak, ikastolak-eta, erdaldundu bear litzakezala, mutillak ikasketak egiterakoan oztoporik ez egien (Orduko Eliz-boletiñak begiratzea daukazue). Beronen anaia da Iruñako Larrauri jauna (quantum mutatus ab illo!). Nik gogoratzen ditudan batzuk beltzak eta gorriak ikusi bear izan ebezan, gizajoak erderaz si ta no baiño ez ekielako: Busturi'ko Larruzea ta Kalzada, Gatika'ko Sertutxa ta. Aien estualdi ta estutasunak eskoletan guztien aurrean erantzun bear zanean! Edo irakasleak orixe ere euskeraz ez ekielako. Nork zer ez ekialako? Linguan latinam et patrian accurate discant (diño C. J. C. orrek). Jakiña, ori ongi ulertzeko jeografia jakin bear lenago dogma baiño. Bear ziranezko doairik ez eukenak irakasle jarrita... gure, euskaldunon, lepotik...

Egitia izateko, auxe esan bear: Iruretagoiena giputzaren urte-eguna zanean, beti joakozan abadegai batzuk iruditxo batean zerbait idatzita zorionak emetera. Berak euskaldunak atzera bialtzen ebazan, arik eta euskeraz zeozer ipiñi artean. Estonba gogoratzen naz, ez dakit zein mukizuk zirikatuta, olan mintzo yakon bein batean agirian: Ni bizi nazan artean beintzat euskerak iraungo dau. Ziur nago biok ez ebela iñor etxera bialdu erdera gitxi ekialako aitzakiaz.

Olantxe apurka-apurka, egunean egunean, eusko lurrarenganako maitasun beroa ta euskerarenganako zaletasun sendoa neregana eltzen asi ziran.

Beste alde batetik, eusko gizadia maitez artzen oitu nintzan. Erdal giza pilloa, barriz, gero ta urrunago neban biotzean.

Itxi dagigun gaurko au ta urrengoan adieraziko dautsuet zelan itsatsi yatan biotz-erraietan euskeraganako zalea ta maitasunaren garra. Ama Lur, Ama Izadia, Gizadi Ama ta, bitzuon lokarri gotorra, euskera, arrezkero daroadaz ene biotz-biotzean, ene begi begietan, ene malko garratzetan.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

KALIPORNIA'TIK

«Kalipornia'ra joan zan gure mutiko gaztea»; «Kalipornia'tik etorri da gure osaba mutil zaarra, ara baiña, auzoko neskarik politenakin eskondu ta an joan yaku barriz Kalipornia'ra». Nere aitonak esaten eban lez. «Olakoak entzuten genduzan arto-aletze egin genduzan ainbeste batzarretan. Ez ziran baiña Kaliporni'ra joaten, gero jakin gendun, Bizkai'tik beintzat geienak Nevada ta Idaho'ra joiazan.»

Ta gaur, ona emen arein illoba ta billobak, ainbeste urteren ondoren, odolaren sorterriratu dirala barriz, ta au entzutekoa, danak euskaldun, euskeraz emengo edozein erritan baiño geiago egiten dabela. Goazan mutillak ara euskerea ikastera!

Garil onen 9'an, Gernika'ra etorrita diran Euskal-ameriketarrekaz egoteko aukerea izan gendun. Boliña ostatuan bertan, euretariko batzuk erantzunak emon eutsezan gure itauneri, Boliña'ko ugazaba be lagun gendula. Oso pozik aurkitzen ei-dira emen, Euskal-Erri'an, ta ondo ikusi al izan dabe izan dituen ibilladietan.

Ta beste barik alkar-izketaldi onen barria emongo dot:

—An, Ameriketan, zein erritan bizi zaree?

—Gu, Boise'n bizi gara. Euskaldun asko dago an, artzain lez joanak eta arein ondorengoak, gu lez bertan jaioak. Bertakotuta gagoz baiña euskalduntzat daukagu geure burua, oso-osoan.

—Zer lan egiten dozue an?

—Lan, emengo antzera. Batzuk oletan, beste batzuk offizetan edo rantxoetan, ta emen daukazue bat polizitzean egiten dabena be.

—Andrak eta gizonak, danok egiten dozue lan?

Ta emakume batek erantzun euskun:

—Bai, andreak eta gizonak, biok egiten dogu lan, andra ezkondu geienok lan egiten dogu.

—Nor da ibillaldi onen buru legez etorri dana?

—Buru, Jess Bermeosolo'k egiten dau, baiña ibillaldi au beste batek antulatu dausku, neska gazte batek. Onek ez daki euskerarik, ingleses bakarrik.

—Leenago egon zaree iñoiz Euskal-Erri'an?

—Ez, emen gagozenetatik bat bere ez. Beitu nik 45 urte daukadaz, ta oraintxe zapaldu dot lenengoz Euskalerri zoragarri au.

Bitartean, Boliña'ko ugazabak diñost: «Oneik, ikaratuta dagoz emengo bizimoduagaz».

—Bai, ta zer diñoe ba?

—Emen, jendea ondo bizi dala, ta gitxi ernegaten dabela. Egun guztietan tabernarik taberna ibilten direala ardaoak artzen. Ta ori eurak ez dabe ondo ikusten, ez dabelako olakorik egiten-edo.



Amerikarrei barriz:

—Danok zagoze Gernika'n?

—Ez. Geinak bai, baiña batzuk Lekeitio'n dagoz, ta beste batzuk euren senide artekoakaz be bai.

—Zenbat inguru etorri zaree orain?

—Ba, 183 lagun etorri gara danera.

—Zeintzuk ibilketa egin dozuez emen egon zareen illabete onetan?

—Ibillaldi asko egin doguz, Euskalerriko tokirik berezienak ikusten.

—Zein izan dozue atsegiñen?

—Geien Gipuzkoa alderdia. Ta onen aldetik Donostia. Onegaz ez noa esaten Bizkaia txarragoa danik, ez. Bizkaia be oso polita da, baiña gure eretxian, geiago Gipuzkoa.

—Zein tokitan entzun dozu euskeraz geien mintzatzen?

—Guri toki guztietan euskeraz egiten izan dauskue.

—Bai? Au ez da sarri jazoten ba Euskal-Erri'an.

—Nik ez dakit zergaitik, baiña guri danak euskeraz egiten izan dauskue. Olan ba'litz beti.

—Pozik zagoze Euskal-Erri'agaz?

—Bai, poz-pozik. Uste dogu, beste urte bi barru, barriro etortea, orain emen gagozanok eta geiago.

Ea ba danok ezagutzen dozuen zuen gurasoen etxea, baita zeuona be. Amerikетarrak izan eta biotzez euskaldunak zaree-ta.

—Noiz zoaze Ameriketara?

—Garil onen 14'an urtengo dogu Madrillerantz, ta andik Ameriketara. Ba-daukagu apur baterako zer kontau gure laguneri.

—Jakin dot, an Ameriketan, euskal-jaiak izaten dozuezela?

—Bai, egiten doguz, baiña euskal-jaiak asko galdu dabe. Len askoz be politagoak izaten ziran, txistulari geiago ta beste gauzak.

—Ez daukazue an txistularirik ala?

—Bai, baiña geienak nagusiak dira ta Euskalerrira etorrita dagoz, ta ez dator txistulari barririk! Soiñulariak bai, ba-doguz batzuk, gure euskal-jaia, geien bat, oneigaz beteten dogu.

Oneik dira irakurle gure itauneri emon dautsezan erantzunak. Danak ziran euskaldunak; euskeraz eta ingleses bakarrik egiten eben; euskerea Bizkai'koa zan. Ze gauza ederra ta zelango erakutsia: iñoiz lenago Euskal-Erri'an egon barik euskeraz mintzatu.

Emendixek bialtzen dautset agur bero ta besarkada indartsu bat, euren zintzotasunagaitik eta euskal gauzeri eskeiñi dautsen zaletasunagaitik.

Ta emendik joatean, Iparragirre'k bere igeskeran lez, abestuko eben abesti polit eta zoragarri a:

Agur, Euskal-erria, ez baiña betiko.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

KONTU KONTARI

ALKAR-IZKETAN VI

EUSKEREAREN BIZIA

—Aste au, Manu luze egin yatak, lengoan euk aitatu eindun «yazokun» aren barri yakiteko gurariz egon nok-eta.

—Ori baiño ezpadok, poztuko aut. Labur, labur auxe gertatu zoan: Gizon bateri burutik-berako batek emon yautsoan eta konorte barik gelditu. Bere emazteak arin bai arin erriko osagilleari deitu yeutsoan. Goitik bera aztertu ta beretzako baiño geyago zala-ta, beste osagille batzuen eretxia yakitea egoki izango zala usterik beste osagille biri deitu yeutsen. Baiñan banan gexoa aztertu ta bakotxak bere eretxia agertu ondoren, biderik egokiena gexoari odola ataratea izango zala erabagi yoen. Gexoagana yoan zoazan ba, eta emaztea negar baten aurkitu yoen. —Andrea, esan yeutsoen, ez zaitez estutu, zure senarra osatuko da-ta». —«Bai zera!», erantzun yeutsen emakumeak, «il da ba ta»... Orduan osagilleak ago batez: —«Tamala...! Apur baten itxaron ba'leu»...! Euskereagaz beste ainbeste ez ete dok gertauko?

—Yaunak ez dagiala nai izan, baiña bildur izatekoa dok. Euskeldunok batzen ezpagozak etxoguk egingo gauza onik.

—Euskeldunok batu ezik, euskerea zelan batu?

—Izan be, euskera batuteko biderik egokiena, euskeldun guztiok, al dogun guztian euskeraz egitea dok. Orixe dok euskeldun guztiei, lenengo buruan sartu bear litzakiona. Bakotxak orixe egingo ba'llok...

—Ik uste dok ori lortu leiken gauzea dokala? Bayetz esan al izatea pozgarri izango litzakek baiña, nok lortu? Euskeldunok buru gogorren entzutea yaukoguk, eta ikusten yoaguna ikusita egia izan bear yok. Alan da be...!

—Zerbait egin geinkela uste dok?

—Bai, baiña orretarako auxe gogoan artu bear: Bearreko gauzetan batasuna, eztabaidakoetan azkatasuna, eta guztien gain maitasuna. Au antxiñeko esakuna izan arren beti dot barri ta beti bearreko...

—Zuzen ago. Guztiok eta bakotxak orixe egiten ezpayoguk, nik etxakiat auxe baiño: Euskera'ren etorkizuna Yaungoikoaren eskuetan itxi bearko yogula.

—Orrek gomutara yakartak Kardaberaz agurgarriak oin berruen eta amar urte esan yoana: «Euskerak burua yasotea Yaungoikoak nai du».

—Neuk be ori ziñesten yoat, baiña bakik Yaungoikoaren guraria betetea, geuri, gizonoi yagokigun gauza dala, lur onetako okerrak zuzentzea geure eskuetan itxi yoan-eta.

—Orduan euskeraren bizia geure eskuetan yagok, eta olan izan ezkero, bide bat bakarrik yagok: Etorkizuna geure eskuetan ez yagok eta, ori alde batera itxi ta gaur guztiok egin bear yoguna egin, **etorkizuna** guk gaur **egiten yogunaren ondorena baiño ez dok-eta.**

—Euskerearen bizia dala-ta baikor **izateko bidea auxe dok: Guztiok maitasun batez euskera zoritxarrekoaren alde, zintzo, eten barik, nekatu barik lan egitea. Ori egiten ba'yoguk, euskera sasi-osagille guztiak be ez yabek ilgo, geure ezpanetan bizi dan artean ez dok ilgo ta:**

—Gaurko, mutil, naikoa izan dok, eta agur urrengorarte.

Agur, eta ondo ibilli.

URIGOITIA

ANE MIREN BARREGAIAK

Lau egun ditu, jaio berria da eta oraingoz negar bakarrik egiten du. Illea beltza era begiak berriz, oraindik itxita dauzka.

Ane Miren jarri diote izena. Nik lenengo ikusi nuanean, ozta-ozta egun bat eukiko zuan, eta an zegon klinikan, beste aur batzukin; danak berdiñak ziruditen.

Orain, etxean dago bere aitekin, amonekin, osabekin, beste anai txikiakin.

Amak bularra emoten dion bitartean, amonak ez dio begirik kentzen, aitak berriz, negarra ixil arazten alengintzen da, anai txikiak berekin ibiltzea nai luke, azkenik, osabak al dutena egiten dute.

Aur berri bat jaio da mundurako, dagoneko negar lenagotik egiten du irriparra baiño. Danok izaki au izar biurtzea nai luteke; Euskal Errian argituko duan izarra. Bere zeruan beste izarren ondoan iraungo duana.

Laister ortzak jaioko zaizkio; baiñan bildur naiz, ezer jatekorik izango duan; mingaiña erabiltzen asiko da eta ez dakit itz egiten utziko dioten, besoak eta ankak astinduko ditu eta ezer billatuko dun ez dakigu.

Biar, etxekoak lagunduko diote, lagun berriak arkituko ditu eta lagunak izango ez diranak ere bai, ikastolan aleginduko da, berdin lantegian eta gaiñuntzeko burruketan ere. Ori izaten da, gizonaren kondaira.

Nik aur onentzat nai nukena zera da, bere aitak izan duten burruka bera aurrera ateratzeko, izan dezala benetan leziorik ederrena.

RAMON ZAPIRAIN

—Lagun, zer jazoten jak gaur? Oso neketuta ikusten aut.

—Ixillik egon adi! Ametsetan lanean ez nok ibilli ba... gau guztian!

* * *

—Gizon zurra, gai guztietan ezbaian egoten dok, mutil. Ezer be ez jakik ziur. Ezer ziur dakiala uste dauana kaikua dok.

—Eta ik ori ziur dakik?

* * *

Etxe ori erosi eike, baiña akatz bat ba-jaukok gero!

—Zein dok akatz ori?

—Trena ondotik igaroten dok eta lenengo egunetan ezin izango dok lorik egin.

—Ori ez dok ezer. Lenengo egunetan beste etxe baten lo egingo joat, eta kito.

* * *

—Aita, zein etxeri osasun-etxea esaten jako?

—Gaizoz beterik jagokenari, mutil!

* * *

—Ama! Ama! Koldok izparringi osoa jan dau!

—Ez jauk ardura, seme. Izparringi ori atzokoa zoan.

* * *

Patxi il zan, besteak bezelaxe. Gizon egizalea zanez, zerura zuzenean. An goian, Kepa Deunaren gelan ormako orduari pilloa ikusi eban. Patxi'ren galderari aingeruak erantzun eutson: orreik, gizon bakoitzaren aoa bezela dozuz. An beian gezurra esatean, ordulari bakoitzak bost minutu aurreratzen dauz». Ta Patxi'k:

—Ikustekoa litzake gure auzoko Perrando'rena.

—A; Kepa deunak beste gelan dauka, ta an ain bero izaten danez, Kepa deunak aizea artzeko auspo lez dauko!

* * *

—Aste bi dira nire emazteari berbarik egin ez dautsadala.

—Orren beste denpora zagoze asarratuta?

—Es. Bera ez da ixilduten eta nik ezin berbarik egin berari.

* * *

—Zelako jasarlekuak saldu eustazuzan zuk atzo?

—Zer ba?

—Guztiak apurtu dira!

—Bear ba'da jesarri egingo ziñan euretan...

* * *

—Gizon bat ona etorten ba'jatzu eta bazkaria jan eta ordaindu ez, zer egiten dautsazu?

—Belarri-ondoko bat emon!

—Merke da. Emoidazu belarri-ondokoa.

TXORI BATEN GOGOETAK

(Jarraipena) **Agiñalde'tik**

Gero mutillek euren yarauntsia eskatu eben, eta lur geienak saldu bear izan ziran, ondoretzat etxea ta lur zati bat besterik ez, Mirentxu'ri etorkiola. Orain basetxeko lanak gitxitu ziran, bai ta mozkiñaz bere, ta Matxalen beti bildur-pean ea lobaren azierako lain elduko ete zan. Baiñan bere kezketan, itxaropen bizi bat yagiten zan: Mirentxu egunen batean mutil on batekin ezkonduko litzake, ta orduan berari bizitzak uko egindako zoriona, neskatil maitagarriarentzat izango zan. Itxatopen onek elburu ta sen bereizi bat bere bizitz illubari emoten eutsozan. Eta olan, argi ta itzalen artean Matxalen'en izaera igatoren zan.

Gau batean, iseko-loba apaldu ondoren sutegi-inguruan izketan ari ziran, eguneko kezka ta lanak amaiturik. Sentipen kutuneko unea zan. Matxalen'ek izara bat naretsu yosten eban. Garren dizdirak, moteltzen asi yakon bere aurpegiaren edertasuna agirian ezartzen eban. Beste aldean, Mirentxu'k begi ameskor bardingabeak sutan tinkaturik zituan isekoak iñotsonan ia yaramonik egin gabe. Alako batean, Mirentxu'ren itzak ixil-une batean entzun ziran:

—Iseko, gauza bat esan bear dautzut...

—Zer maitea?

—Mixiolari izan nai dot.

Itz oneik entzuten, Matxalen'en barruan zerbait ausi egin zan, eta parrastaka etorkiozan naigabea ta malkoak estaltzearren, burua esku-lanaren gaiñean makurtu bear izan eban... Ezin eikean baiñan negar-yarioa eutsi, ta otzan, ixil, malko kiskalgarriak ixuri yakozan. Mirentxu'k isekoaren atsekabe bizia oartzeka, garretara so egiten eban urrezko ametsak ausnartuaz. Gero, neskatilla oeratu zan, eta Matxalen'ek orduan barruko naigabeari neurrigabe emon eutson. Negar-zotiñek bere soin nekatua iñarrosten eben, etengabeko aienekak iges egiten zitzaizkiola. Azkenean, malkoak txukatu ta yagi zan. Oeratu baiño leen, ibillera kolokaz Mirentxu'ren gelara yoan zan oi bezelako mosua emoteko.

—Gabon Mirentxu.

—Gabon iseko. Zein pozik aurkitzen nazan yakingo ba'zendu... Iseko, alik laisterren yoan gura dot. Ez dozu naigabe aundirik izango ezta...?

Matxalen'ek ez eutson erantzun aal izan, eta mosu luze bat emoten eutsola aldendu zan. Gau artan ez eban lorik egin eta biotzean beste zauri izugarri bat sortu yakon.

Gero, dana ameskaitz zoro baten pean bezela yazo zan. Lekaimetzarako bearrezkoa zan arrioa, iseko-loba gertatzen asi ziran orretarako gauari orduak eta orduak kendu bear ba-eutsoezan bere, bata zorionaz blai eginda, bestea barriz, gogua ezin esan alako larrituta. Azkenean oztopo bat aurkeztu yaken: diruarena alegia. Nondik lortu lekaime-saria? Matxalen'ek ez eutson ordea gai oneri garrantzi aundirik emon. Lurrak salduko ziran, eta lobraen yardokitzeari yaramon egin barik, lurrak saldu zituan, Iñarratza'ri zapiño bezelakoa zan lur-zatitxu bat geratzen zitzaiola soillik.

Eta goiz batean, biek Atxandi'ko bidea artu eben. Arratsaldean, pairamen neurrigabe baten pean, Matxalen etxera biurtu zan bakartasunaren larritasuna leenengo aldiz bere gogoaz yabetzen zala. Bakartasuna... au izango zan bere ezkongai izugarriaren mosu luze izotzgarria; eriotzaraiño iraungo leuskion lagun itsa, ixilla.

Arrezkero, Matxalen'ek ezin aal izan eban Iñarratza'ko giroa yasan. Etxeko bazter guztiak loba galduatzaz mintzatzen yakozan, eta bakartasun eroangaitz argandik iges egitearren, erriko mandataria biurtu zan. Goiz orotan, egunsentia ozta-ozta asirik, kortara yatxi, astoa gertu ta goizaldeko argi-itzaletan bidetik aienatzen zan. Errira elduta, aurreguneko mezuak betetzen zituan, eta gero polliki-polliki, astoarekin ausoz-auso, etxeri-etxe yoian agindutakoa eskuratzeko, ta urrengo egunerako bearrezkoak ziran aginduak artu oi zituan. Illunabar irian etxera elduten zan. Atea zabaldu baizen laister, begi larriaz lurrera begiratzen eban ea Mirentxu'gandik eskutitzaren bat eldu ete zan, eta gero sutondoan yesarrita, orduak eta orduak irauezan oroitzak edo lobaren barriak ausnartuaz.

Mirentxu Afrika'ra mixiolari yoana zan, eta illean birritan Matxalen'eri idatzi oi eutson. Lobaren eskutitzak yanaria bezelakoa yakozan, eta bere bizitz bakartian itxaropenezko argitxu bat piztuten eutsonak.

Iñarratza'ko etxe bakartian, urteak igarotze ixillaz alkar erraikion. Matxalen'en aintziña urrezko gaztainkara izandako adats bikaiña urdintzen asi yakon, aurpegiaren edertasuna zimeltzen, eta soin txairoa urteen astaz makurtzen yoiakion.

Oi bezelako arratsalde batean etxera itzultzen zalarik, ate-pean eskutitz bakan bat bere igurikan egoan. Zalantzaz beterik, idazkera arrotzaz eldutako eskutitza artu eban. Zurubitik gora yaioala, larritasun esangaitz batek gogoa estututen eutson. Sutondora eldurik, esku dardartsuaz estalkia urratu ta irakurten asi zan... gero, eriotz-pairamena bezelakoa zan oiñaze bizi batek kordegabe itzi eban.

Mirentxu laztana illa zan... Aberriagandik urrun, lurralde amaigabe areitan, bere biotzeko kutuna basoko pakean zetzan. Ugolde aundi baten pean, galtzorian aurkitzen ziran ume batzuk salbatzearren, bere bizitza galdu eban.

Gero, garramau arte oiu ta oiuka asi zan, ta azkenik, negar-zotin amaigabe bat etorri yakon. Matxalen gaixoari gaua negarrez eta otoiez igaro yakon. Goizaldean aunaturik, solairu gaiñean amildu ta ameskaitz batek atzitu eban.

Zenbait egun zoro baten antzera etxe guztia ibilkatu eban, loba maiteari dei ta dei. Gero, oroitzakandik iges egitearren, barriz mandataritzari emon eutson. Baiñan oraingo ontan, gogo utsik, asto aularekin bideetatik lo-ibiltzaille baten antzera yoian. Illuntzean ganora galdurik, etxera itsultzen zan bere amaigabeko pairamenengandik iges egiteko ezindua.

Ordudanik Iñarratza'n ez zan surik piztu, ta zapiño bat bezelakoa zan baratza, itzita egoan bedar eta azunez betetzen zala iñoren ardura barik. Matxalen gaixoari dana bardin yakon. Sutondo ixil eta otzean yesarrita, orduak eta orduak irauezan, malkoen muga baiño aruntzago yoanda, ta arrezkero, betazalak edi gorriz inguraturik, malko gabeko begirakune utsaz geldi-geldi aulki-gaiñean egoan, aintziñako oroitzetan galdurik, ixillean pairatzen ebala. Baiñan oiñazea eroangaitza billakatu yakon, eta igarri barik edateari emon eutson.


Iñarratza'ko mutxurdiñak ez dau orain gure aspaldiko lorearekin antzik. Noragabe doan norbaiten utzikin errukigarria biurtu da. Etxerako bidean, ardoa erosten dau ta sukaldeko betiko tokian yesarrita, askaritxu bat artu, ta gero txurrutari ekiten dautso adimena moteldu arteraiño. Au da Matxalen'en yareialdia, abots totelaz batzutan abestuaz eta bestetan alkarrizketa zoro bateri emona.

—Gomutaten zara Mirentxu? —sarri esaten dau, ta yarraiki aspaldiko gertaeraren bat abots laiñotsuaz kontu-kontari asten da.

Bestetan barriz, ego-aize ibiltariak gure barrutian zear igeska, Iñarratza'ko egapean txistu sarkorrak ataratzen ditu leio zaarrak iñarrosiaz. Matxalen orduan ibillera kolokaz zurubitik beera oldartzen da, Mirentxu'k atean yo egin dauelakoan, eta an iñor ez dala ikustean, lurrera begiratzen dau estalki baten begira, baiñan atepekoa utsik dagerkio.

—Aize zakar madarikatua, barriro ene kutunaren eskutitza kendu daustazu —Iñarratza'ko mutxurdiñak ukabil erkiña astinduaz diñotso. Yarraian, gora barriro aopeko abestiak eta betiko bakarrizketa yarraitzeko.

(Jarraitzeko) AGIÑALDE'KO TXEPETXA



KIROLAK

MAZARREDO OSTIKOLARI GAZTEA



Ostikoketa edo ostiko pelota kirolan sarritan euki ditu Galdakanok ostikolari ospetsuak, nor ezta gogoratuten Iraragorri, Mandaluniz, Zubieta, Jugo ta azken aldiko Zorriketa ta Argoiti'z? Eta orrein aiña onak izan ez diran beste asko be bai. Aspalditxuan baiña, orreik lako ospetsurik urten ez ba dau be, ba'litzake orain Atletik'en gaztetxuen artean jokatuten daben iru edo lautatik batonbat onak urtetea ta, berau izan lei Mazarredo eta Barandika'tar Joseba-Andoni mutil zindo azkarra izatea, gazte urreiako onenen bat da-ta bera; ea berak zer diraustun:

—Joseba, galdakanotartzat zaukat baiña, berton jaioa ete zara ta noz?

—Bai emen jayo nintzan orain amazortzi urte neure guraso galdakanotarretatik, eta zetan esan bez, emen bizi izanaz beti.

—AGUR euskerazko izparringi ontan zerbait zu gaitik idatzi gura neuke erantzun nai ba'daustazu.

—Bai, ta pozik; itandu nai dozuna.

—Leenengoz erriko gaztetxuetan jokatu zenduiakoan nago, noiztik ona Atletik'en?

—Amalau urtegaz asi nintzan erriko ekipoan jokatuten eta, bertotik eroan ninduen Atletik'era ta bertan daroataz iru urte.

—Zenbat bider izan zara Atletik'en txapeldun?

—Bizkai'ko txapeldun askotan eta Españia'koa birritan. Eta beste baten Españia'ko txapeldun Bizkai'ren ordezkari lez, eskualde artean.

—Aurtengo txapelketa guztiak errez xamar irabazi dozuez eta azkena Madrid'egaz jokatu dozuena, kirol-zale geienok garaille izango zarela uste gebana, galdu egin dozue, zer jazo yatzuen bertan?

—Gauza asko jaso yakuzan; guk, ziur uste geban irabaziko genduala, Medrilleko geienak Castilla'n ordezkari lez jokatuak ziran ezketiño gure aurka, ezgututen genduazelako, baiña, bertan egiten eban beroa zala-ta aurreko gabean ez-giñan ondo atsendu, batobatzuk makalki be aurkitzen ziran ta, benetan makalduta aurkitu giñan azkenerako, nai-ta ondo baiño obeto jokatu leenengo saioa. Ostiketan iñoz artu dogun samiñik andiena artu genduan jokolariak, eta zetan esan bez, Garai'k.

—Atsegiñez, zagoz Atletik'en?

—Bai benetan, niretzat pozik andiena Atletik'en jokatutea da.

—Orduan, ostikoketan jarraitzen ba'dozu, uste dozu noz edo noz jokatuko dozula lenengo taldean, ekipoan?

—Ba-dakit ortarako asko ikasi bear dodana, baiña, nire ametsik andiena ori da: lenengo taldean jokatutea, ta orretarako alegin guztiak egingo dodaz ea maille ortara elduten naizen.

—Ederto Joseba, ortarako orain artean legez ondo yabon bear zara ta kementsu jokatu, ea lasterbaten gorago aipatu doguzan ostikolariak lortu eben ospeaz ikusten zaitugun. Eta, zer diraustazu zeuon gertatzaille Garai'gaitik? Mutikoeri lez, maitekiro erakutsiten dautsue berak?

—Ez, ez. Gizoneri legez, ereduz baiña gogor erakutsiten dausku, nire ustez bear dan lez; ori bai, joko-lekutik at maitekorra ta atsegingarria da, danon adizkide on bat.

—Atletik'o gaztetxu orrein artean euskerazaletasunik eta beste Erri-miñik susmetan ete da?

—Bai, euskeraz ainbatek egiten dabe, ta erriarazoetan sakonkiro arduratuta dagozanak asko dira.

—Poztuten naz gazteok, euzko gazteok Erriminez ikusteaz. Ostikoketea, eta beste zerbait egiten dozu?

—Bai, leenen bost urteko «batxiller» egin neban eta irugarren urtea daroat «maestria» ikasten.

—Beste zerbait, Joseba?

—Neure agur samur bat AGUR'eko guztiei ta, aleginduko nazela bera irakurten eta zabaltzen.

—Eskerrik asko ta orretara esango dogu.

ALTUNA'TAR JOSU

BERO!

Izerdi-patzetan naukazue tramankulo onen aurrean. Aurten ez zala udarik izango-ta, aterkin gintzan asteko nengoan nere bizi-bidea irabazteko asmoan. Au dok Garilla, gitxitan olakoa! ta au barregarria, oraintxe arte, egun guztian ez jat itsas-baztarrik burura etorri; pagadi eta erreka-zulo illunetan ames egin dot; ortozik uretan oiñak eta pagopeko itzalean soiña; burua? olerkien zuzmurretan erdilo. Ames utsak, ez dot aspaldi gaur aiña lan izan, ezta onenbeste izerdi bota.

Ta orain, edo laster, or joango gara oporretan. Eguzki ederraren azpian narrua illuntzera; jente artean bultzaka, asarre baiña irriparrez, au zapaldu ori arez bete, or joango gara itsas-ur otzean atsedentzera, edo aulkirik ez dan akeitetxe baten margodun-urak izoztuta edaten.


Kontuz baiña, ta ara emen gogoragarri batzuk:

«Eguzkitik onena kerizpea». Egi biribilla; ez zaitez larregian, erdi-lo, orren azpian jarri, zure birikak kalte aundia izan daikee-ta. Ta aur jaio barri edo txikiak ba'dira, ez egizuz unetxo baten be orrela euki. Oraintzu il da bat, Eguzkiak itota. Baltzituko da berez, kerizpean be, aizeak berak dagiotsa orrenbeste.

Ondo jan dozu? Iru ordu gitxienez zeure burua busti baiño len igaro daitezala; geienetan ez dau ezer txarrik egingo, bein baiña, ta ori ez da barriz izango, edo urdailla nagitu dalako, edo gibelak asarrea dabelako, baita guntzurrunak opor dagielako-edo, biotzak pot egin daiketsu ta agur...

Kerizpea, ori bai-dala udan ederra. Ta egarri izan ezkero, urik onena, ez margoduna, ez gaurko iturrietakoa, oba dozu azpaldian ezaguna dan INSALUZ otzkirria edan, bai bazkaritan bai aparitan, edo arratsalde erdian, emazte ta aurregaz zoriontsu zarala txurruegaz CHOBILBASERRI, ONA eznegaz egosita jaten dozula, azkaria baiño, nork txurro geiego jatearen txapelketea dirudi olakoak. Beitu bestela alboan daukazuzan ume ta... zarrago orrei.

IBUR



ORRENBESTE INGORRIREN OTSEIN, EZ!

Amaika bidar izango ziñan ordainagiri baten ardurapean, etxean edo, okerrago, iñorenean ordainketea egin bearraren zain! Zeregin orretarako zeure ordezko bat izatea lasaibidea litzaikezu. Orrela, ausiabarrak, leiatilla aurretako zutik egoteak eta diruak oker zenbatzearen arriskuak saiestu daikezuz.

ORDAINKETEN LEKURATZE ori duan erabilliko dozu, gurean kontuidegi bat eukitzeaz beste barik. Bilbao-Banku onek, zure argi-indar, ur, laspel, urrutizkin ta abarren agiriak zure ordez ordaintzeko ardurea artuko dau beregain, baita biltoki, alkarte naiz zerga ta su edo bizi-aroenak bere.

Ta beti, zenbat, noiz eta nori ordaindu jakonaren ezaugarriak izango dozuz.

BANCO DE BILBAO BB

Onek emakumeen eskubideak onartzen ditu

Aprobado por el Banco de España con el núm. 7924.

Antxiñako euskaldunak



Euskal gizonak alkartu dira
udako egun arrean
Santi Mamiñe leza ondoan
Euskal-erriko oiñarrian.
Lengoa, gaurkoz, oroitzen dogu
mendiaren barrenean
antxiñetako euskaldun zarrak
leza barrutan ebiltzan,
gaurko gizona, zer deritxazu,
lengo bizitza lezetan?

Gizonak gizon millak urteetan
lanak ugari egiñaz,
euren bizitza zaindu al eien
leza illunetara doaz.
Gizon ta andra lege dan legez
erri au sorteraziaz,
bizi, maitatu, jolastuz gero
bizia bertan utziaz,
Euskal-erriko leza zuloak
mintzatzen dira lenagaz.

Bizi gogorra lagun areena
bakardadean egonik,
sasi ta arantza, elorri baltzak
lurreko ale bakarrik
Bizi izateko urteak labur
nekeak ain aundi izanik,
basati gogor zan izadiak
ez eukan ez errukirik,
oraingo ontan zer diraustazu
anai areek oroiturik?

Bizitza gatza asmetan nago
betiko ezti egarriz,
ta arek ostera il egin bear
gazte gazterik min biziz.
Era orretan jokatu eben
Euskal-erriaren zoriz,
geroko oiñarri sendo zindoak
jarri zituen munarriz,
izate, odol, mintzai bereziz
euskaldun agertaraziz.

Aldi aretan zer eiten eben
ezaugarriak ba-doguz,
giza-semeak, beti arduraz,
jakituriari buruz.
Lenengo lana lezak billatu
bizia bertan ugalduz,
janak billatu, bizia zaindu,
baso etsaiak oinpetuz.
Lagun gartsua, esaidak zerbait
antxiñako bizi-moduz.

Bizi bideak agindu eutsen
eiztaritza bidea,
arri, egurrez baliatuaz,
piztiak jausten lurrera.
Leza agoa zan eskaratza
guztien bizi lekua,
barru aldean orma zapaian
agertu eben ertia,
garai artako pizti nausiak
margozturik illintira.

PAULIN

APAIZAK ERRIRATU

Euskalerrian be bat baiño geiago izan dira apaizgoa itxita erriratu, au da, sekularizatu diran apaizak. Bai abadeak eta bai prailleak. Monjak be ainbat. Euren aberrian baiño atzerrian itxi dabenak geiago dira. Erriak eskandalu aundia izan dau onegaz. Ezin iruntsi izan dau, urteetan goi-samar dabiltzenak batez be.

Elizan, Batikano II'aren ostean, gora-bera aundiak, aldaketa aundiak, barrizte aundiak izan dirala danok dakigu. Erriak gaizki artu dau abadeak eta prailleak sekularizatzea. Itz gogorrakaz gaiztetsi dau.

Egia esan, apaiza goi-mailletakoa da gizartean bertan be. Jainkoak aukeratu eban, bere ta gizonen bitartekoa izan edin. Kristau errian xerarki berezia dau. Berak, apaizak, bananduten ditu gizonen artean ainbat Jainko-grazi ta doai. Gizon berezia da alde ortatik. Zer jazo da ainbat apaizek bere bizi-era itxi ta sekularizatzeko? Zerk egin dau uts? Bost zergaiti izentatzen ebazan Miret Magdalena jaunak «Gararipen» bere lanean: menpekotasuna; siñismen-espiritu galpen edo gitxitzea; gizadidoarik eza; jakintza-aldaketea, ta ustegetasuna gaur egunetako belguntza-jokabideetan. Beste zergaiti batzuk be izan leitekez, baiña esandakoak naiko. Ikusten danez ba, apaizen auziak ez dira geien baten gonak eta aragikeria. Gaizki, errez pentzatzen dabenak gogoan euki begie au. Apaizen bizi-aldaketa zergaitiak bat baiño gieago dira-ta. Gaur inguratzen gaituen ainbat gauzak bultz dagitse apaizai bizi-aldaketa ori egiteko.

Jazinto Argaia Donostia'ko Gotzaiak zergaiti bat dakar euskeldun apaizai buruz: gure erriaren gizarte ta erriaren arazoetan orain arte baiño geiago lan egin naia. Erri-miña esango neuke nik. Argaia jaunak izendatu baiño ez dagiana, onela azalduko neuke nik: «Euskalerriko gaurko apaizak —bai sekularrak, bai prailleak— erri-miña dauke; erri-miñ au barru-barruan daroe, kendu-eziña jake. Erriaren eskubideak zapalduta ikusten dabez; bere izatea il-zorian. Bitartean gizonen ixiltasuna eskubide onei buruz, edo txarrago dana, aurka egitea gure erriaren eskubide, oitura, izkuntza ta izateari buruz. Ta apaizak argi ikusten danori. Apaizak ondo ulertu dana. Oneina olan eta be, tamalgarria, baiña aitutzekoa deritxat apaiz onein jokabidea.

Zer egin? Arrika? Gaiztetsi ta danen laido ta irain lez euki eurok? Ez al-da izango oba zezenari adarretatik eustea? Apaizen auzia orokorra da. Mundu osokoa; euskaldunena baiña, berezia dala ezin ukatu. Euskaldun apaizen auziak ba-dau beintzat bere berezitasuna. Apaiz-aldaketok gitxitu bearrean geitu egin leitekez gure artean. Negartutzea ez da naiko; osakaia billatu bear da. Apaizaren legeak atzean geratu diran ezkero barriztu ta aldatu. Bai, baiña apaiz euskaldunak zerbait geiago eskatzen dabe.

Apaiz askok ezkontza-bizitza artu dabe. Bizitza barria. Bizitza barri onek ainbat eragozpen sortu-erazoko dautsee ziur asko. Lan eta diru-eragozpenak alegia. Apaizak ez dagoz mundu-lanerako gertatuta. Eliz-ikaskaiak egin ebezan; ez dabe beste jakintzarik. Batzuk lan eta diruaren aldetik txarto bizi dirala ba-dakigu. Erriak ain ondo ez dauzala artu be bai.

Aldatu bei erriak bere eritxia apaiz euskaldunei buruz. Ez dira gaizkilleak, ez lapurrak, ez odol-zaleak. Euren erria ostera maite-maite dabe. Gizarteari, erriari on aundia egin leikeoe. España'n bertako apaizen alde zerbait egitekotan dira. Euskalerrian be zerbait egin bear da. Olanda dogu eredu beste gauza askotan lez. Alfrink Kardenala ta beste Gotzaiak ez dira lo egon. Erriak be ez eban izan alako gaizbiderik sekularizatu ziralako. Alkarte-koperativa bat sortu zan Olanda'n euren bizi-era izten eben apaizai laguntzeko. Diruaz laguntzen jaken alditxo baten, lana billatu, lan barrirako gertatu. Onela zeozertxo egin leiteke gure apaiz euskaldunakaz be. Beti be kristau ta euskaldun agertu gaitezen apaiz-izatea itxi daben gure anaiakaz.

GOIRIA

Zuzenbide - Askatasun

Egia maite daunak zuzenbide alde jarraiki ta jokatu bear dau. Urko-laguna oinperatu, txarto erabilli ta berari odola atera ezin leike iñoiz. Lan-gabe, lan-geldi egokerak, andikeri apaindurako diru-eralte ta ondatzeak maitasunakin ezin alkartu, bateratu eziñak dira. Ainbeste erri ta giza-talde gosez eta egarriz; ainbeste etxe, bizitegi ezbear zorigabean; gizonak ezjakiñez ondatuta bizi; gaxo-etxe, ikastol, bizileku egoki ezkaz egonez, egokera oneitan, errien eta norberaren ondatze ta diru-eralte guztia, gudatarako iskillu barriak egitea, gaizpide, laban-arri eroan eziñak bear dira.

Jardestzailleak (responsables) berandu baño len entzun dagiela gizon jakintsu ta zintzoak agertzen dabe-ta orrelango ainbeste zoritzarrak.

Alanbe, setsu (sexo), enda, margo, gizarte-izaera (condición social), izkuntz, erlijio dala-ta, norbaitasun edo notiñaren era gustizko banantzea (discriminación). Jainko eredu aurkaz dagolako, aldendu ta baztertu bear da.

EGIZKO MAITASUNAK DANENTZAT ASKATASUNA GURA DAU

Maite dauanak askatzen dau. «Jainko Goteuna dagon tokian, an askatasuna bizi da». Ain zuzen be aske dalako, erein eta eregiten dau bakea askatasunean.

Egiazko bakea ezta otoz-gertatzen; zapaldi (opreziñoz, bildurrez erakera oker, bidebako ipiñiriko bakea ezta zaindu ta eutsiten». Bakea gizatiar izan bear da, ta beraz, artesa, askedun ta zoriona», Olan iñoan Paul VI g'nak 1969'ko urtarrilla'ren 1'gn. Beste enparauen askatasunean ezautzen dauan ezkero lenengoko izaera gizona biziteko, maitasunak askatzen dau. Egiazko askatasuna jainko irudiaren goien ezaupidea gizonagan da. Gizon bereburua bakarrik ontasunara bideratu daiteke.

Gizonari ezpayakoz erreztuten itxiten dautsozan bizimodu izaerak bere duintasun barneezau bidea eukireko ta bere deiari erantzuten, Jaunari ta enparauei bera emonaz, zentzu onen erantzupera ezin eldu leiteke. Gizona bearraldi ta urribizian jausirik, sarriaskoz giza-askatasuna makaldu ta gaixotuten da; alantxe be gizona zitalduten da, buru-eritxiz bizitza errezgeiaz, urrezko bakartasunez barrutzen danean. Orren ordez, gizarte bearrezko egin bearrak artuten dauzanean biztu ta indartzen da bere askatasuna.

Askatze zaleak gizarte erabidea billatzen dau eta onetan gizonari askatasun ekiñaldia erreztuten yako. Aldi berean, gizanorbera daintasun, gauza ganazko burutasun, eskubide ta eginkizunen ezaubide ta zentzuna goratzen da. Orregaitik, bearrezkoa da emotea gizonari bear dauan guztia, egiazko gizatar bat biziteko. Oneik dira janariak, jantzi-soñekoak, bizitokiak bere egokera, bizimoduren aukeramena, sendi-sortzea, aziera, lana, entzute ona, begiramen, itzal, baita erlijio gaietan bidezko askatasuna be.

Kristiñau anaitasunean bizitzen danak oraingo gizarte ta gizonen askatasun naikari onetan, Jainko egikera erakusten dau.

Baña oraingo ekandu ta oiturak ikustean, Kristoren madarikaziño ikaragarriak legegizon ta fariseotarren aurka jaurtiteko gogoa: Zorigatx zueri itxiten dozuelako legearen gauza ardurazkoenak zuzenbidea, ustetsi ona, errukitasuna. Zorigatx zueri garbituten dozuen bitartean azala bakarrik, itxuradun agertzeko, barrua lapurkeriz eta loikeriz daukazuelako. Zorigatx zueri guzurrez beteta bizi zarielako...»

Kristiñau askok ta eleizgizon batzuk ezpadakie Ebanjelio, Goizpar aitormen ta ziñaltza obeto izaten, gizonei ta euren makaltasun ta sarri askotan gaiztakerieri be ori leporatu, ta ez Eleizeari. Eleizearen eskuetan gizonen betiko salbaziñoa ipiñi eban Kristok. Orretarako, Eleizeak mundu onetan ezarriteko **zuzenbidea** ta **askatasuna** alegiñak beti egin ta egiten ditu.

LETONA

OARRA

AGUR'ekoak ez dogu oporretarako astirik, irarkolakoak baiña, urtero lez Dagonil orren zear euren ondo irabazitako opor-aldia izango dabe, ta irar-lanak egiteko ez dogu aukerarik izango.

Orregaitik, zenbaki au zerbait aundiagoa datorkizu, eta datorran il-azkenekoa onenbestekoa izaten alegindu ko gara, bitartean Dagonil ortako 15'tekoari uts egingo dautsagu, baiña zuen dei edo idaz-lan ta beste edozertarako emen izango gaituzue.

Ondo izan denok!


AGUR

ITZ-EUNDUAK

(XIII)

Etxebarria'tar Juan Anjel

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Zur landua.—B: Bits.—D: A lakoaz.—E: Ots gogorra (a. a.); Bokal.—G: antxiñan Bat (.a a.); Leku ortan; Ondar.—I: Laukinitz'ko auzunea; Liñua lantzeko.—J: Iñor ito; Arroz.—K: Zenbaki; Zoaz (ika); Txori-etxea.—L: Bokal; abizena (a. a.).—M: Arrain-mueta.—N: Lo ta lo dagiana.—O: Urrekoa.

GOITIK BERA.—1: Bizia galdu (a. a.); 2: Abere.—3: Arauketan (a. a.).—4: Euna gelditu; Konsonante.—5: Era aretara; Bokalak; Indar gitxiko.—6: Era ugariz; Oinatala.—7: Azal gaitzekoa; Ari izan.—8: Ordain-bearra (a. a.); Gerok; Mendi tontorra.—9: Konsonante; Abereen atseden-lekua a. (a.).—10: Arri-toki.—11: Mozorro egalari.—12: Arpegi-atala.

XII'aren agerpenak:


Zearretara = Ak.—Amor.—Izaroa.—oñoroL; G.—Agurne; Gai.—Arilla; Borta—aetaA; Solaun.—Oar; Berdin.—N; ratnaZ—niriuZ.—kueZ.—Konsonanteak.

Goitik bera = Aa.—areO.—Ogitan—Iñular; N.—Azorla; riK.—Amarna; Barur—Koroe; Setien.—roL; Bornuz.—A; Goldaz—Garaiz.—An.

ASMAKETEA

(VIII)

Garatea'tar M. Luisa



ZER DIRUDI EUSKALERRIAK?

VII'aren agerpena: **Kurutz-bide larria.**

ILBO'TIK ZUMARRAGA'RAKO TREN-BIDEA, USKALERRIA TA GEROKO EUROPA'REN KAIA, BILBO'N

MESANZA'TAR BERNARDO, LUGIN-MAISUAK, EGIÑA

Bizkaiaren aurrerapenerako gaur diran edo laster izango diran bearrezko gauzak oneik dira:

a) Bilbo'ko irakastetxe nagusia.
b) «Petronor» arrorio edo petrolioaren garbikiña.
d) Bilbo'ko egazkin-zelai nagusia (gero, bigarren ekiñaldian, Europa'ren kai aundia).
e) Bilbo'tik Beobia'ra auto-bidea, goi-zabaldira ta ibero erreka aldera urteerak ditula.
g) Laterri-arteko egazkin-zelaia.

Ba dago, baita, neure ustez, orrein besteko garrantzia dauan beste gauza bat, bear dan estean kontuan artzen ez dana: Trenaren bidez, Bizkaia beste euskal-alderdiakaz bat egitea. ta gero Frantzia'gaz eta Europa-txikiko beste laterriakaz.

ILBO, GEROKO EUROPA'REN KAIA

Dagon lurraldean dagolako eta beste zio batzukaitik: bere sakonereagaitik, 20'tik 30 metra, onenbesteko sakonerarik Frantzia'ren Atlantik itxasoan ez dagon lez eta «La Mancha» zarotea itxas-ontzi aundientzako gatxa dalako, orregaitik ondatu dira ontzi batzuk aurtengo eguan, laster izango da Bilbo'ko kaia Europa guztiarena mundu guztiari begira. Eta jazoera ek onura aundia ekarriko dau gure Erriarentzak eta Europa'rentzat. Orretarako, gurari i bete daiten, gertatu egin bear gara.

Bilbao'ko kaira erosgai geiago etorteak eta itxas-erabiltearen iraultza diran «container»'ak artzeak, au kai barria egin baiño len, arritu egiten gaitu. Gero kai barri onek 1.500 eun-areko ango ditu (gaur kanporako daukagun kaia baiño bost bider aundiagoa) eta kai onetara 500.000 neladako arroriodun ontziak sartuko dira, baita 150.000 toneladakoak diran beste erabatzueko ontziak be.

Galea-aldean sortaldeko ormea egiten danean, gizaldi onen azkena baiño len, Bilbo'ko tzak 200 milloe tonelada erosgai artuko ditu.

Kai barria egin baiño len, eta Autobideak daukazan oztopoak kentzen ba'dira bere, daukazan bide zabalak ezin izango dabez kaiak eskatzen dauzan erosgaiak edo salgaiak erabilli. Onegaitik tren-bidez Europagaz alkartzea bearrezkoa da.

TREN-BIDEA, IBILTARIAK ETA SAL-EROSGAIAK ERABILTEKO EREA

Lengo bagillaren 4'an Deustu'ko irakastetxe nagusian RENFE'ko zuzendari dan Lozano bide-maixuak, labur-laburrean Ministroen batzarrean izendaturiko amar elburu gogoratu eskuzan. Ministroen batzar au orrillaren 28'an izan da, aurten.

Zabalera ezbardiñakaz ibilli leitekeza trenak egiten diardue. Onetarako sariketa bat egin dan Laterri-arteko Trenen Alkarteak eta ori bide dala Europa'ko sal-eroslekuak gugandik errago izango dira, bide ezbardiñagaitik aldaketarik egin bearrik ez da izango emengo eta Europa guztiko trenen artean eta.

Bilbo'ko San Mamés eta Santurtze'ren artean eta kai barrira izango dan irugarren bidea laster ikusiko dogu eta Kasilla'tik joango dan bide barria nork merkeago egiñekoa jokatuko da aurten.

Miranda'tik Bilbo'rako tren-bidea barriztaten ba diardue eta berez gelditzeko era barri kategaz erabiltearen ziurtasuna ta indarra bitu egingo da.

RENFE'k «container» tren utsak ipiñiko ditu expresen antzeko arintasunaz eta bostak aurrean Bilbo'tik edo Irun'dik urteten dauan gauzea urrengo eguneko amabiak aurrean Madrid'en, Barcelona'n, Valencia'n edo Sevilla'n izango da.

Zorionez Bilbo, Goi-zabaldia eta Ibero erreka ingurua bat egitea laster ikusiko dogun gauzea da. Eta au gure aurrerapenerentzat garrantzi aundiko gauzea da. Nik pozik artzen dot au, oindiño ondo eratu barik eta oztopo aundiakaz agertu arren.

RENFE'k egazkin-zelaira be bide bat egingo dau Bilbao'tarrak ara joateko erreztasuna eman dagien, Abando'tik, Gran Via ber-bertatik urtenda.

Bilbo'tik Zumarraga'rako trenak dakarskun erea egazkin-zelai aundi au lurralde guztirako izan daiten bide bat izan leiteke, Euskal-erria, Ibero ingurua ta Goizabaldia bat izan daitezan.

Mundu guztian, trenaren berbizkundearen amar-urteetan dagoz. Irurogeta amarreko urteak amaitzen diranerako sal-erosgai geienak trenez erabilliko dira eta au iru zio gaitik: merkeagoa dalako, naste gitxiago daukalako ta garbiagoa dalako.

Alemani'n, gaurtik, sal-erosgai batzuk trenez erabilli bearrekoak dira.

Japon'ek, 1975'erako Tokio-Osaka «tren egazlaria» egingo dauala diño. Au 30 cm lurra baiño goragotik ibilliko da magnesi-indarrez eta orduko 450 km. egingo ditu. Iraultza bat izango da trebetasunari begira, «indar bizia» abiadaren laupenagaz batera dator eta, ta abiada aundietan oztopoa lurragazko artuemona izaten da.

Ibiltarientzat eurentzat be logeladun trena, berebilla edo egazkiña baiño egokiagoa da Madrid, Barcelona, Paris, Bruselas'era edo, joateko.

Uri-ingururako trenak, eun Km.'ra arteko ibilliak izango ditue.

BILBO-ZUMARRAGA TRENA GURE ERABILTE-ARAZOETARAKO BIDEA

Esan doguna dala ta, niretzat garrantzi aundikoa da trenaren bidez Europa'gaz bat izatea, baiña ez bide estuko tremez, ez gaur Bilbo'tik Donosti'ra dagoanez, Donosti'tik igarotea gatxa da ta, Durango'ra arte aldatu egin bearko leiteke, baita gero Durango'tik Elorrio'ra be, eta Elorrio'tik Elgetara'ra eta emendik Angiozar'era ta Antzuola'ra, gero Zumarraga'n RENFE'gaz bat egiteko. Onelan uri aundiak alde batera izten doguz. Baiña orretarako tren-bide barri au egin bear.

Bide au artu ezkero, Iruña Bilbo'tik 70 Km. urrago izango leiteke. Eta Donosti Bilbo'gaz bat eginda 113 km'ko trenez, eta Gipuzkoa'ko lantegiak Bilbo'ko kaitik 100 Km'ra.

Tren-bide barria 20 Km'koa izango leiteke eta aldatua (Bilbao-Durango-Elorrio) 40 Km.'koa.

Bide au artu ezkero, lurralderik menditsuena, itxasaldea, igaro bearrik ez leiteke izango, eta ganik-gan joanez bide barri onek Elorrio'tik Zumarraga'ra bitartean uririk igaro bearrik ez leuke izango.


1969'ko bagillean, Bilbo'tik Donosti'rako tren-bide estua zabaldutea zenbat kosta leiteken atera zan: Bilbo'tik Durango'rako 28 Km. 191 milloe peseta eta Durango'tik Donosti'ra 1.200 milloe peseta, eta oindiño Donosti igarotzea egin barik.

Elosegi Amundarain bidemaixu jaunak, Gipuzkoa'ko Aldundikoa berau, onetarako eratze bat eginda dauka.

Zelako onureak ekarriko leukezan eratze onek gure irabaz-bideetarako, lugintzari, aberegintzari eta basoari begira, ezin jakin len eginda dagozan asmakizunez, lan oneik eguneratu egin bear. 1942'an Euskalerriko Aldundiak billaketa au egin eben Araba'ko Aldundiko Bidemaixua buru zala.

Burutasun oneik agertu bearrean aurkitzen naz, onelan tren-bide arazoak argitzeko gure geroko aurrerapena konturaturik, orain 113 urtetik gaur arte onetan lanean ibilli izan arren gure trenbide artu-emonak oso txarrak dira ta.

Bilbo'n, 1971'ko bagillaren 10'ean.



IDAZTI BARRIAK

Izena: *Alkartu danok.*
Bigarren agertaldia: 1970.

Egillea: *Euskerazaleak. C. de Larreategi, 14-2.º Bilbao-1.*

Irarlea: *Graficas ESET-Seminario de Vitoria.*

Liburutxu au euskal-abestien txorta bat da.

Ainbat abesti dakarskuz, geienak barriak, gaurkoak, edo beintzat urte gitxiz onantzakoak. Abesti oneik gaur gure eleizetan abesten diranak dozuz, irakurle, eta, orregaitik, eleiz-batzarren arduradun diranentzat, bearrekoa da liburua.

Lenengo ta bein, mezearen egunerokoa, abesti bakoa izan arren, dakarsku. Au be liburua erabilli bear dabenai ondo datorke, onela liburu baten abestiak eta beste erantzunak dabez eta.

Gero, 19'garren orrian, abestiak nondik artuak diran diño: Batzuk txorta zarrak, esaterako Aranburu'rena ta Planas'ena; beste batzuk barriak, esaterako Donostiko seminarioak egiña, Amuritza'tar Xabier'ek Derio'ko Seminarioan egiña...

Abestiak eurak zati oneixetan banatuta datorz: Mezearen asierakoak, itzaren liturjirakoak, Jainko-erriaren otoizerakoak, Eukaristiaren liturjirakoak, eskerrak emotekoak, mezearen amairakoak, ildakoen mezetarakoak, gabonaldirakoak, garizuma ta pazkoaldirakoak, Ama Birjiñari abestutekoak ta santu batzui abestutekoak.

Oraindiño, abestiai buruz, liturji-barriztatze au amaitu barik dago. Orregaitik gaur agertzen diran abesti-txortak betirakoak diranik ez dogu uste izan bear. Uste dot laster, edo urte batzuk barruan beintzat, abesti txorta barri bat eta oso ornidua agertuko dala. Orretarako lanean dabiltz euskal-goterkiak batera. Baiña lan ori amaitu arte, gaur aztertzen dogun liburutxu au bearrezkoa dogu. Ezin geinteke itxaroten luzaro egon. Erriak abesti barriak, gaurkoak, eskatzen dauskuz. Baita abestiak ugari be. Erria barriak ikasten zalea ez da izaten, baiña ikasi ondoren ugaritasuna oso maitagarri jako.

OLAZAR MATIÑ'EK

EUSKEREAREN EZKUTUAK

IKASBIDE EGOKIENA

Euskera-ikasketan aurrera ba'zoaz, edo zeure izkerea ta idazkerea sendotu ta edertu nai ba'dozuz, **La Gran Enciclopedia Vasca'k** argitaldutako urrengo idaztiok bear-bearrezkoak dituzu. Orreik ondo artzertzean eta ikasiaz, Euskerea eskuratu dozula esan daikezu:

AZKUE'REN IZTEGI NAGUSIA.—Euskera-gaztelera-parantzera. 1905'gn egin zan argitalpena ber-bera barriz, ale bitan. Ta beste bost milla itz geiago, Azkue berak arrezkero batuak. Itzak, nungoak diran eta zelan erabilten ziran, agertzen dituala.

EUSKAL ABESTIEN BILDUMA.—Cancionero Popular Vasco. Azkue jaunarena au be. Ale bi. Euskal abestien itzak eta doiñuak; danetarikoak: eleiz, eztai, maitasuna, biotz-min, dantza, aurtzaro, barregarri ta edatailleenak...

PERU ABARKA.—Mogel aundiak itzi euskun irakurgai, iztegi, edesti, lanbide, oitura, jazkera ta euskal-izakeraren zeaztesunak, danok batera, erraz ta sakon aztertzeko aiñakoa. Ale bat.

ITXASTAR IZTEGIA.—Garmendia'tar I'ren lan aipagarria. Ale bat. Arraintzale, itxas-gizon, ontzi-gille, ta idazle-izparlariak aztertuko dabena; baita euskerea ondo ikasi nai dabenak be.

EUSKAL ITZEN-EITE, edo morfolojia. Iru aletan. Azkue ta Altuna'ren lan zoragarria. Au dogu euskera txukuntzeko eragin-gaillu onena ta bakarra; au barik ez dozu iñoiz jakingo ondo ala oker zabiltzanik.

Eskatu **«La Gran Enciclopedia Vasca»'ra,** Apartado n.º 1510. — BILBAO

IÑUNGO MAUKAK

URSS'en bertan, ta bere menpean dauzkaten aberrietan langillea erremindurik dabillela ixiltzen dan gauz jakiña da. Norbaitek, euskeraz idatzi du «Sozialismoa zientzia bat dalarik ez daukala porrot egiterik», edo orrelako zerbait.

Onela diotenentzat, bere ustez ongi dijoaztenean guztiak dira sozialistak, baiñan porrot dagitenean. «Ez zegoan benetako sozialismorik» esanda lasaitzen dira. Eta esaten ez diguten bitartean garbi, nun ipiñi eta erabiltzen duten «Zientzia» ori, gerez begiratu bearrean gertatzen gera «Zientzia» ori legokean errietara.

Polonia'n, esatebaterako, langilledia ez dabil oso pozik bizitzaren egoitzarekin. Lansariak lengoak eta bizitza garestitu egin zaiete. Sindikato bakarra dago. Agintarien morroia. Sindikatu onek badu doai gobernuari eskabideak egiteko, ez ordea aalmenik agintari oiek uko egiten duenean onekin burrukatzeko.

Burrukak langilleetatik sortu bear du, eta sortu da. Langilleak bere bideak artzen ditu, eta oporretara joan. Eta emen dator «zientziako» agintarien asarrea, Sindikatoaren ixiltzea, eta langilleak eundako erasoa jasan bearra.

Langilledi orrek, sindikato azkeak eta oporrak egiteko eskubidea eskatzen ditu oiñarri bezela, ekonomia eta beste zenbait arazo zuzendu aal izateko. Eta agintarientzat, langilleek beren ogia eskatzea sozialismoaren aurka joatea omen. Eta Polonia'n, ametsez bizi ez diranez, langilleak burrukan jardun bear.

Txekoeslobakia'n ta Hungria'n ere erri langillea asarratu zan. Eta bertako jauntxoak langillei erasotzeko aski indar ez izanik, errusitarren «tankeen» bearrian arkitu zirala ondo dakigu. Aitzakia ber-bera. Sozialismoa zaindu bearrekoa. Ez gizona, ez langillea, estadua baizik.

Txekoslabakia'n aitzakia aurrera atera bearrez, geroztik saiatu dira nola azalduko errusitarren «bearra» ori guztiak onartu dezaten. Sindikatoak ere errusitarren tankeen sartze ori «bearrezkoa» zala esan du. Baiñan Sindikato osatzen duten beeko sindikatozatiak, nekezago ibilli dira aitorketa orretan. Batez ere, idazle intelektual eta kultura sindikatoa.

Kultura ministroak, auek auldu nairik, zatiago egin ditu eresgilleen, antzezlarien eta idatz-sortzailleen sindikatotxoak sorturik. Eta ala ere, kultura sindikato auekin dituztela oztoporik aundienak aitortu bearrean izan da. Baiña, azkenean, Sindikatua Estadua ber-bera izan.

«Zientzia» ori salbatzeko Varsobia'ko Paktoan dauden gudarozteak ekarri «bearra» ori, mingotsa derizkiote baiñan txekoak. Eta mingotza ere Sindikato bakarraren morrointza.

Jugoslavia batekoak bezela. 1970'gnko lenengo urte erdian bizitzaren mailla % 12 igo zan. Langilleen bultzadaz Sindikatoak egin du eskaria. Agintariak lan-saraiak daudenean pot gelditzea nai du ta langilledia ezezkoan gogor. Onela, 1970'gnko. lotazillean ustegabeko eta bat-bateko batzarra Parlamentuan. Bertan agintariak Sindikatokoei jakin erazten die legegai bat idatzia zutela sariak «jelatzeko». Autarkiak eskatzen dira eta, noski, Gobernua garaille.

Ondoren etorri ziran betiko Sindikatoaren negar-marraka paltsoak, eta lengilleen negarixuri egitazkoak. Agindua bai-zan, kapitalista errietan bezela, lan-sarien igotzea bizitzea garestitzea zala.

Iru aberri auen jokabideari ba'gagozkio, zuk eta nik, irakurle, beroietan langilleek atera duten pentsa-ondorena aterako: sindikatoak azkatasun osoa bear lutekela sozialista sistemetan bezela kapitalistenetan ere, bai agintariengandik bai alderdi politikoengandik azke izatea. Batez ere agintarien alderako Sindikato edo alderdi politiko bakarra baldin ba'dago agintzen. Eta zergaitik langilleak ez du sozialismoa dagoenetan oporrak egiteko eskubidea izan bear? «Zientzia» danez, ez dagoala lan arazorik? Ipuiak eta aitzakiak bide motxa dute.

Eta urrutiko intxaurrak bertara joanda...

OLAZABAL'DAR XABIER

ARRAIN-EZA

URRUTIRA

Urte onetako negu onetan, ez da sartu gure arrain-kalatara esateko arraiñik. Au dala-ta al izan dogunok «Eskote» deritxogun kalara juen gara. Kala au Donosti ta Pasai'n aurrean dago. Arrain-kala onetan, politxo irebazi dogu geijenok. Eskerrak Jaungoikoa'ri. «Eskote» arrain-kalien izan ez ba'gendun arraintzue negu onetan, mosuek-be okertu egingo dozkun gosiek geuri arrantzaliori, eta biar bada asarrekuntzek eta lebatz-ontzi lotukerak izango ziran, nire ustez, gure errian eta kaian, 63'garrengo urtian bezela. Ez da mirari gaurko bizi-bideagaz asarrekuntzek eta itsas-ontzi lotukerak gertatutie irebazi-ezagaz edozein erri ta kaiatan. Au danok ondo dakigune da. Zer irebazi ezik, jan ezin, ta jan ezik ezin ibilli. Esaera zarrak diñozkun lez: «Etxe utse, guda utse».

«Eskote», arrain-kala onetan, negu guztije iraun dau lebatzak. Egualdi txarrak egon ez ba'ziran, politxoago irebaziko gendun, baiña negue dan lez beti negue, egualdi txarrak etorri biar, eta onekaz ezin itsasoratu gure izan dabe. Lebatz asko sartu da «Eskote» arrain-kalara. Gure erri-aureko arrain kalatara sartu ba'zan «Eskote»ko arrain-kalatara sartu zan lebatz moltsoa, nire ustez ez eban iraungo lebatzak «Eskote» ko beste garaitz edo denboran; an, ez da ibiltzen arrasterurik-eta.

Ez dogu ikusi an, iñor «urpe-geldi-sareak uretara jaurtitzen kala ortako arraiñak arrapatzeko. Onexegaitik nire ustez, oker ez ba'nago, irauten dau arraiñek luzaro arrain-kala orretan. Baiña gure erri aurreko arrain-kalatan saretarrak egiten dituzte biar edo lanak, bai gabaz ta bai egunez, eta bai guretzat egualdi txarrak daukagunien be, Basamortuek. Alper debekatute edo galasota euki saretar danak biar edo lan egitie gure erri-aurreko arrain-kalatan. «Eskote»'ko bekaizkeririk barik irebaziko genduke, baiña zoritxarrez saretarrak dirala-ta, iñungo arrain-kalatako bekaizkerije eukitzen dogu sarri. Au tamalgarria guretzat benetan. Iñungo kalatara sarri begire gaudelako orain dala bi urtetik onuntz diardue al dauenak itsas-ontzi barriak eta andiauak egiten, asi 125'tetik, eta 170 zaldiko tramankuluak, eta biar bada elduko dira 200'erarte be.

UDABARRIKO AMU-ARRAINTZA

Uda barrian euki dabie irebazi obie gure erri-aurreko lebatz-kalatan amuegazko arraintzaleak, bai lebatzegaz, eta bai beseuegaz. Eskerrak Jaungoikoa'ri. Poztasunegaz. ikusi ditut itsas-ontzi txikiko arraintzaliak. Neu be poztu nintzan eurek ikusirik pozik. Ni neu «Eskote»'ko arrain-kalatan ibilli naizen ezkero, uda barria be ez dogu izan txarraua irebazijegaz negue baiño. Eskerrak Jaungoikoa'ri Jon Donea'ren egun eurreko egunian artu dugu bildurra edo ikaria lebatz-arraintzan gagozela. Etorri jaskun bestaldeko anaijen jagolia, ta al izan dogun arrapaladan iges egin dogu an egon geran itsas-ontzi guztijok sartalde'ko arrain-kalara, barriro amuekaz arrapatzen arraiñak.

EGALUZE SASOIA

Egun gitxi barru urtengo dugu egaluzetan. Euki gaigula Jaungoikoa'ren laguntza oraiñarte bezela bai osasunegaz, eta bai irebazijegaz.

AZPEITIA'TAR GOTZON

IKASKETAK ETA IKASKERAK

Dagonil onen lenengotik asita, amabost gunen luzeeran, Loila'n izango diran ikasleta-ikastaroak garrantzi berezia dabenetik, ta ondik igaroko diran ikasleak, besteen aurrean izango daben gaitasuna begiratzekoa danetik, emen dakarkigu Arregi'tar Josu'k, idaz-lan onen lenengo zatian aztertzen daben orrelako beste ikastaro gorengo bat. AGUR.

I

IRAKASBIDE BARRIAK

Garillaren bostetik amabosterarte Bilbo'ko Garbitasun «La Pureza» ikastetxean berreun ta ogeta bost bat irakasle batu dira. Euren izate ta jomugea ikasle-mutiko naiz neskato gazteen nortasuna, ta berezko trebetasuna gatu ta geitzeko, ikastoletan irakasketa barritzeziak erabiltea izan da.

Aundizka danak bat datoz, bakoizka ordea ondiñokarren ikusi bearrean gagoz. Onetan be ukenengo itza *oar-ikasiarena* izan bearko unbait.

Zertzelada batzuk

Zertzeladok laburkiro damotsuedaz:

1.—Ikasleei ez dautse ikaskizunak batera emongo; bakoitzari berea baizik. Era berean tetiko baztertu bearrean dagoz irakaslearen zalpen luzanga, aspergarriak.

2.—Ikasle bakoitzak idazti galdegarri bearrezkoak jakozanak aukeratu leikez. Onetan irakaslearen zeregin berezi ta beiñena, ikaslearen trebetasuna begiratu barik bere zaletasuna nondik norakoa ta zenbateraiñoka dan ikustatuz, artan laguntzea be ei-da.

3.—Ikasleak al dauan giñoan jakintasunean aurreratzeko, berez, ebazkizun ta auzi guztietan aztertu bear ditu batetik; ta aulako onpenaren oarpen-errestasunez ta berez, ikasi bestetik. Geroago ta uste geiago bere indanetan izatea, onela lortu daikelako.

Sortzaille edo asmatzaille lez, oar-ikasiak lagun, bere burua begiratu. Bardin, texto'ko idaztiak t'abar guztiz saieztu ta baztertu.


4.—Gurenez, ikaslearen arazo garrantziduna, irakasleak damotsazan «ficha-txarteletan», su ta gar lan egitea da. Txartel-kutxatxo onetarako len aitaturiko galdegarri edo konsulta idaztiak batik bat bear ditu. Batzuentzat onetarikoak, besteentzat bestelangoak. Danetan, beti, irakaslearen ardurapean tinkaturik.

5.—Irakasleak, gero, ikasleen «txartelak» banaka banaka aztertu daroaz ta utsak zuzendu. Ez dago azter-arorik, ikastaro-examin azkenik.

Ondoren opagarriak

Ikaskizunak bizitzarako egokiagoak, oituagoak ikasleentzat izan daitezela. Nere gardiz onela izatekotan oar-ikasi polita, onurakorra benetan, giro-aldiaren aurrerakuntzaz batera, lenengo ta bigarren maillako ikaskizunetan batez bere, gure gaztediak izango dauana.

Euskaldunen artean al dogun eran beste ainbeste egitea gure ikastoletan bere, ez al litzake ona izango? Begiratuaz ez dogu ezer galduko, ta bai erleak loretan lez gure gaztetxuentzako ikaskizunaren ezti bikaiñena bide batez opatu.



II

Gaztedia

Asko ta ondo gaztediatzaz idatzi da. Ni be nerekiko ur tantantxoa gaiñeratzera noa Gaztedia ludiaren itxaropena dogu. Bera ondo ezi-naian ekiñalak egin bearrean, abade, guraso ta irakasleak batik bat aurkitu oi gara. Gaur laburkiro ba'da be irakasle lez diardut, baiña gaurko giroaren berein gazte lasai erantzundun-ezaz artu-emonak darabiltzuen guztiok nigaz bat izango zarealakoan nago.

Aldiak daroan giro barriekaz, adiñeko azleak geranok adi ta zur ez ba'galbiltz beti saieztuta, aldamenduta beingo baten geratu geinkez, ta oraindikarren kaltegarriago litzatena, gazteekaz batetik samurkiro, esku-bigun. ta bestetik tarte-gabeko ardura bizi-leiatsuaz ez ba'gabiltz ibilli, ez dabe egin-egiñean gere onu ta irakasteetatik, esateko onura andirik aterako. Ori egi biribiltzat gazte-arduradunok dogu.

Ez iaku beti oneza euron gogapen, lillura, biro-zaletasunak t'abar onartzea. Gurekiko gaztediaren mendu ta izakeran sustrai eskier, emokor ta onuragarriak ereiten baldin ba'doguz, ta olakoetan gure xede ta asmoak eurenekaz bat-egin, ta onetara gaztearen biotza irabazi; orduan bai elburu au lortzea zailtasun gabeko zeregiña litzakigu ta emen aiurri ta jenak kristau ta gizaki lez osotu ta ornitu geinkez. Gure gogamen, naimen ta begitasun beiñenak gaztedia geureganatzea izan bear leuke, onela ezilariak geranok bere azieran ta eziketan garrantzitsu esku daigun.

Nola daukagu ludiko gaztedia? Ezingeinke neurri bategaz danak bardindu. Batzuk lasaikerian buru-belarri murgildu dira. Ikus... drogadunak, oraintsu Torrimolinos'en expetxeratuak, ainbat eta ainbat «hippy», «beatnik» eta orrelakoak. Gitxi dirala? Ala ta be baiña, kaltegarri ta jardun-bide galgarri anitz gaztei damotse.

Ez dira geienak

Bestetzuk, alderantziz dagie egitan. So dagigun aldi gitxi dala, oiñez amabost ta ogei kilometrotik gorako ibillaldia Xabier'era egin ebenak, millaka gazte zoriontsuak, parebako euskaldun mixiolaria ikertuz batera, euren biotz barneak poztu ebezanak; baita ere urtero Oñati'tik Arantzazu'ra oiñez doazanak, Durango'tik Elorrio'ra egunotan bezela gure Berriotxoa doatsuari Euzkal-erri ta Gaztediagaz errukitu daiten otoiz egitera joanikoak t'abar. Oneik eredu ezin-obea damoskue.

Ea gure euskaldun gazteok zuek beiñipein bizi-aurrerakuntz guztiak bide dirala, ori bai, irratietan, eres-mintz-diskoetan, urrut-ikuskiñetan, abestietan, era guztizko txapelketetan, idatziaz, berbetan, zuen bizimodu orokorrean kristautasun ta euskal-kutsudun egikerak bulartsu dagizuezan, ikasbide bikaiña lurbira guztiko gazteentzat bide batez izanik.


Olan artu geinkez zuen aotik izuritakoak lez, aspaldi bateko euskal olerki oneik...

...geroak esan beza: «Erri bat izan zan».

Edo-ta ats emaiogun ontan iraun dezan.

ARREGI'TAR JOSU

ZORION, ZORION!



Zorion bai zuri, ta zure emazte gazte orri. Garil onen 3'an Egileor'tar Zorion ezkondu jaku. Suarez de Bilabo'tar Alize neskatillarekin. Aor abeslari sendi barri bat, ta Egileortarren senari jarraituz, abeslari barri txiki pillo bat sortutzeko bidea.

Zorion ezkondu jaku, bere onenean. Aurtengo udabarrian Hit-paradean gora-gora igon eta txapeldun izan dogu luzaroan. «Bizi Beti Euzkerea», ez da baztertu, ezta baztertuko be aldi luze baten, ain da ba polita. Garaipen ori eskeinduko eutsan bere emazte barriaren bidez Murueta'ko Ama Doatsuari. An izan dira eztaiak, eta an ziran bere aitaren Gazte-Zar taldekoak, meza-eskeintzan aurreskua egiten eta ondorengo saio azken bakoa ezkonbarrien omenez.

Etzan an bakarrik, beste legun asko be an agertu ziran Zorion'en zorionaren lekuko izatera. Euren artean, beste txapeldun bat. Udabarrian alkarregaz norgeiago gogorra izan daben beste abeslari jator ori: Estitxu! Onek, eztegumezetan, aingerutxu bat bai-litz AGUR-MIREN zoragarri bat abestu euskun. Tamalez, ez gendun izan an, eskuan, soiñu-arrapatzaille orretako magnetopon orretakorik; ba-ete dozu ori diskoren baten?

Orain, udaldiko opor eta geratu-bearrak eraginda, zuen arteko norgeiago ori zerbait makalduko da. Ea baiña udazkena ezkero entzuten dautsueguzan lengoak eta barriak, zuek dakizuezan lez. Kontuz baiña Estitxu, orain Zorion'ek laguntza barria jaso dau, ta ez edozelangoa. Diñoenez, Alize'k eta Zorio'ek euskal abestiak goi-gora dakarrezala eta ez dala erreza izango eurok berdintzea.

ASTI'TAR PERNANDA

Distribuidora

SAN MIGUEL

Or ibiltzen zara euskal-idazti onik ez dagola esaka, ez dozuzalako aurkintzen-edo. Guk ostera, emen daukaguz zuretzako danetarikoak. Asi ipuin umekorretatik eta jakintzan goi-goi maillaraiñokoak.

Izendegi bat argitaratu dogu; bertan zazpireunetik gora dira euskeraz edo euskel-gaietzaz diarduen idazti lerrokada. Eskatu egiguzu izendegi au ta ikusi zein edertasunera eldu dan Euskal-Erria bere seme-alaba jatorren alegiñen bidez.

Euskal eres eta abestien mintz edo diskoak bere badoguz. Entzun ete-dozu «Kresala» taldeak asken aldi onetan eskeintzen dauskun «Egi-Bidean» zoragarri ori? Emen daukaguz, ta eskatu egiguzu, orrelakorik zuregaitik esan ez dagien.

Zure erreztasunerako, Irakurleen Bazkidetza bat sortu dogu, nai ba'dozu, izenpetu zaite gugaz, ta illero idazti bat eskeinduko dautsugu, atsegin ez yakonari beste bat bialtzen jako. Zeuk aukeratu zenbaten izenpetzen zaran: ogei, berrogei ogerlekotan? Esan zure naia ta pozik beteko dogu.

Edozertarako idatzi edo deitu ona:

Distribuidora SAN MIGUEL

Torre, 3-1.º—Bilbao-5

24 95 29 - Urrutizkiña

ERRIETAKO BERRIAK

Galdakano

BASERRIAK!!:

Azkanengo urteotan doiazan abiadan ba'doaz, beste urte gitxi barru Galdakano'ko basetxeen eta lugintzaren azkena ikusiko da, orretarako zio bat baiño geiago izanik.

Erri au Euskalerri'ko beste erri askoren antzera, lur sakon eta mamintsudun solo ta bedar-landaz ingurututako basetxe zabal ederrez ornidutako erri zabala zan. Zelaikada andiak. Ibaizabal ibaiak eta bere iturburu askok bustitutako lurraldeak. Goi-goiko basetxerik iñoz-be eztau euki; geienak Artetagana, Burtotza, Txispa-mendi ta Basabeak basetxeak izan dira; Arteta, Ergoien eta Erletxeta-goikoak, Padrolak, goitxu auzunetan, baiña, auzune oneik be euren bitzabala edo bide onak aldamenean dabezala.

Esandakoa ta guzti be basetxe oneitako bat baiño geiago utsik eta erdi utsik aurkitzen dira aldi ontan. Zergaitik? Batzuk, lerduiz ingurututa aurkitzen dirala eztabelako baso-abererik ez artalderik eukiteko aukerarik eta etxe-beiekin bakarrik biziteko naiko lurrik eztabelako. Eta beste askok, gaztediak, biziera nasaiagoa, ardura gitxiagokin bizi nai dabelako ta, bai geroko etorkizunik iksuten eztabelako be aldi ontan, lugintza dagon eran. Ori goi-aldetxuak, be-aldean barriz, zeleikada andiak dauz erri onek, erriko lurrik sakon mamintsuenak eta errezak baiña, aurrerapenak ekarri dauskuzan landola ta lantegiak alderdi batetik eta azkenengo etxegintza ugariak bestetik, estaldu dabez lurralderik onenak. Eta ori gitxi ba'litz, azkenez erria zati bitan ipiñi dabe. Bilbo'tik Beobia'rako bitxalbal bereziak ondatu ditu amaika aneineurkiñean Bengoetxea-Urreta-Bekoa ta Gumuzio'ko zeleikadarik mamintsuenak.

Ezin daikegu ukatu, aipatu dugun bitxalba berezi ori ongarria da laterrientzat, baiña, gure baserritar askoren ondamendia izandanik be ezin iñork ukatu, lugintzarako izan diran lurrik onenak bide orrek estalduak izan diralako.

Era ortara aurkitzen dan nekazaritza, euskeraren oiñarri ta aterpe izan dan euzko baserria; goi-aldeetatik alde egin bearrean iñoren adibiderik ez laguntzarik izan eztabelako, ta be-aldeak biotz bako Alkarte andiaren landolak jabetu diralako lurrik onenakin. Beraz, gure nekazariak, baserritarrak, bide bi daukaz gure ustez; bata, alkartu indarra artuaz, arazoak eurak erabagiteko, iñoren laguntzari begira ezin litzakezalako egon; bestea, dana alde batera itxi eta kaletarrok zer jaten dogun ikusteko, baiña ori danon kaltegarri izango litzake, batez bere Bizkai ta Euskalerria'ntzat bai txindiz baita izakeraz be.



Bein baiño sarriago esanak gara, mendigoizalea mendiko beren ibilketan bidebatez aintzakotzat euki bear ditula zer ikusi ta ikasgarriak diran alderdiak eta ikustokiak be, Eztala mendi zaletasuna soinketa pizka bat egitearren arrapaladan mendi gaillurrera igon eta bertan ezer adituteko asti barik barriz len baiño abiada andiagoaz errira jatsitea; ez, zerbait ongarriagoa izan bear dira mendigoizalearen ibilketak bai bere jakintzarako ta bai kirol garbi kementsuantzat be.

Zorionez erriko Ganguren taldekoak txangorik geienetan egiten dabez ikusketa ongarriak, eta ori ikusirik gu be sarritan izaten gara euron tartean. Garilla onen 4'gn. berebil andi baten Erreinosa'ko mendi tarte andijetan izan giñan, berrogei ta amabost mendizale, ta Tres Mares (bertatik iru itsaso'tara doalako ura), «Peña del Pando» (Cuchillón) ta abar zear ibilli ondoren Ebro ibaia jaioten dan Fontibre ta beste ainbat ikusgarri aztertuaz poz-pozik itzuli giñan etxera, beste obe bat egiteko asmoaz.

BASA-JAUN

IRAKASLEA BEAR DA

Ikastola baterako

Gizonezkoa, maixu euskaldun tituloduna

Deitu arren, Bilbao'n **23 29 01 edo 31 03 15 urrutizkiñetara**

Ondarrabia

Gaur, etxeko barriak emoteko idazten asten naz. Etxekoak eta neu aitatzeko be bai. Zer arraio, beti besteen kontuak esaten ez gara ibilliko.

Zera... naiago neban ezkondu egiten nintzala edo guraso egin nazala edo olako barriren bat emon al izan ba'neu, gazteago izango nintzan-da. Bai, neu be gaztea izan bakoa ez naz eta, ezta emakumeengana urreratzeko barrurik ezda damuz ba'da be mutil zar gelditutakoa. Ez Jaungoikoa'ri eskerrak neu be ezkondu nintzan eta ume pillo baten guraso izatera eldu be bai. Baiña bere denporan, pozik emongo nituan albista orreik emoteko, erarik ez neban izan, euskeraz idazten ia aztu be egin jakun, euskerazko aldizkaririk argitaratzen ez zan denporetan izan ziralako.

Orain, jakiña, oraingo barriak emon bear ta oraingoa auxe da: Aiton egin nazala edo ondarrutarrez esan da, atxitxe.

Bai, emengo gazte Garaialde'tar Joxan'egaz ezkondu zan nire alaba zarrenak, Garbiñe'k, mutil bi mundura ekarri ditu. Ederra asiera! Euren izenak Asier ta Gaizka izango dira ta ba-dakit ume orreik izenez lez izatez be euskaldun euskaldunak izan daitezen euren gurasoak arduratuko dirana.

Beste barria: Bigarren alaba Karmentxu ezkontzen jatala Etxaide-tar Blas'egaz Dagonilla'ren 12'an, Santa Klara egunean.

ETXABURU'TAR JOSE MARI

Arrasate

MERKATU BERRI

Uztailla'n 7'an izan zan Merkatu Berria'ren azkundea. Lenagoko Uarkape esaten zan leku berean jaso duten etxe berriaren azpietan egin dute. Oso ederki dago eta bertan eratu dituzte 33 gelatxo salerosterako toki politak eta egokiak. Bertan saldu izango dira: Aragi, arrai, barazki, ogi eta abar. Etxekoandreentzeko egokitasun andia izango da.

«Txema» Diario Vasco izparkariak gogorati izan dausku azkenengo urte oneitan lengo «plaza» zaarrian izan diran jai batzuk eta nik urrutiago gura dut. 1915'g. urtean izan zan oporketa gogor bat Union Cerrajera'ko ugazabaren aurka eta langille guztiak bat egiñik iru illabete luzaro igaro zuan, azkenean iñor ez zan garaille urten, ez ugazabak eta ez langilleak, baiña bai batasunak langille artean indar izan zuala. Batasun au lortzeko «plaza» orretan izaten ziran batzarrak eta bertan «sozialista» eta eusko-langilleak batuten ziren De Francisco sozialista aldetik eta Don Poli Larrañaga eusko-langille aldetik gidaritza zutela, aako eibartar, naiz eta Soraluze'n jaioa izan, apaiz gogoragarria, gizarte arazoan eta euskalgiroan; gaur be aren erakutsiak naiko argi emongo luke.

Orrez gañera 1918'g. urtean katalandarrak eta euskotarrak batasun orokorrean zabiltzen eta orretarako «plaza» orretan parte artu zuten Isusi tar Estepan itzlari jatorrak eta Rugama tar Erramon legegizon sonatuak garai artan. Orrez gaiñera nor uste dozue emen izan zala? Utsa: Muxika'ko URRETXINDORRA: Enbeita'tar Kepa, Euskalerriak ezagutunik bertsolari oneneitakoa. Lelenengo biak itz egin zutenean jendeak arretaz entzun ziran eta Kepa'k itz egin zuenean etenbageko txalo eta santzuak entzuten ziran. Garai artan erri onetan arerioak geiago ziran aldekoak baiño eta orregatik areik juan ziran asmoz itz egiten ez uzteko baiña Enbeita'ri entzunda gero bereganatu entzule guztiak eta besterik ez zan entzuten txaloak besterik.

EPAITUAK

Madrid'en «Epai-Etxean» epaitual izan dira erri onetako gazte oneik: Garai ta Jon Erramon, Auzmendi tar Joseba Andoni Mendikute tar Joseba Iñaki, Anzuategi tar Joseba Andoni, Arizabaleta tar Kepa Iturbe tar Domeka, Arana tar Estepan Anzuategi tar Jon Joseba, Zabarte ta Josu, Auzmendi tar Joseba Erramon eta Bergaretxe tar Augustin Azkenengo si onek erbestean dira eta besteei iru urte eta 50.000 peseta zigorra eskatzen du epaile riak, baiña uste da zior eskatze ori gutxitu izango dala eta laister ikusi izango dituguda guztiz aske.

Orain nik esango nioke gazte zantzo oieie auxe: ba-dago nun lan egin Euskalerria'ren alde. Gizarte arazoa gaur egun garrantzi aundikoa eta bere alde alegin guztiak egin bearrean gera, baiña kantoki esanai asko begiratu barik, geureak dira gauzai lotuta egin bear dugu. Ara o «DANOK» euskal-jakintza taldea eta ona babesean lan asko egin lezake. Eta ez azpi lenengo eusko nortasuna indartu bear dugula eta berariz EUSKERA goraldu: Euskera itz egin etxean, kalean, senar-emastegun artean, lagun artean, tabernan, fabrikan ikastolan eta... elizan. Orrexek ikusten ditut gaur egun biderik onenak Euskalerria'ren alde.

GUDARITZARA

Beste batzuen artean eta idazlan u argitaratu aurretik juanik izango da gu lagun on Garai eta Bengoa'tar Jon Erramon. Ondo ibilli eta kontu izan geldizen dirala zure guraso, senideak eta Jone ber arduraz, noiz etorriko zeran. Agur.

UDALAITZ

Ondarru

Erri guztiak daukez euren buruau teak. Ondarru'k be bai bat baiño geiago. Ondarru'k daukan erabag bearreko buruausterik aundienetarik bat bide kontua da. Ondarru'n bid zabal bat besterik ez dago beribil u gurdientzat ta guztiz estua bera gaurk premiñetarako. Ta gure erria ezag gutzen daben guztiak dakie emen best biderik zabaltzerik ez dagoala. Berr alak egin bear dira lengo bide sistriñ obeagotzen. Bidea, moilla edo ka aldea, errez zabaldu daiteke iñori u ezeri kalterik egin barik. Au zelan leiteken danok dakiguna da ta ez dago emen barriztatzerik. Baiña, kontuak kofradixa ertzetik zubi barriraiñoko tartean dira. Or, atzera edo aurrera jokabide bakarra ikusten da: ibai al dera dagoazan etxeak, zarrak be bo dira ta, eraztean barriak atzerago egin Toki asko ez jake geldituko, baiña ba piso bakotxean etxetxu bana egiteko ta goruntz dauke alderdietara ez dau ken tokia. Urteak joan urteak etorr ola jokatu bearko dana iñok ezin ukatu daiteke.

Ta, asmo oni buruz lenengo oin kadak emoteko ordua oraintxe da, errira egun batzuk igarotera joan na zanean ikusi dodanez. Kale orretan etxe zar bat lurrera jaurti ta bere orde edo tokian barria jasoteko lanean ziar duela ikusi dot. Ez dakit zer asmoga diarduen, ez dakit bidea noizbait za baldu bear izango dan kontua buruz izan daben ala ez. Bildur naz olakori iñori be gogoratu barik ez ete dabizen.

Dana dala, errietan lan txar asko egiten dira erriko jendeak bear da denporan berba egiten ez dakialako. Ez dakit orain alperrik berbetan diar tuten be, kontu orregaz bear ebena ni baiño len gogoratu izan diralako. Ala ba'litz obe. Ta ala ez ba'litz, ni neure abotsa jaso dot.

KAMIÑAZPI

ERRIETAKO BARRIAK

Arratia

DIMA

Etorri izan ziran era berean joan ziran, ixilik eta apalik, Dima'ko jai nagusiak, Sanpedroak.

Gaztediaren eskurik eta eskubiderik ezagaitik, eta erriko giltz eta agintze-makillaren jabe altsuaren gogorik ezak —ezbearren bategaitik arpegia zapitsu be ba-eukan-eta— ezer gabe izan zan ikustekorik eta entzutekorik, eta erriko gazteak deslai ta noraezean Zeanuri'ko Undarraga'raiño eldu ziran ango jaia alaitu ta indartzera.

Astegunetan, Dima'k, atso-aguren eta zar zarituen erria dirudi, ta jai-igandeetan illerria dala entzutean, ez dogu larritu bearrik, eta nagusia ta morroia buztarri bitakoak diralarik, emen ez da ikusten bizi-pozaren izpirik, Non dira Zamakola'ren zamakolatarrak, gorengo oillarra zanaren jarraitailleak? Zamakola'ren izen eta egiteak, pitean-mikean beti miñean, norbera baiña, lozorroan sakondu ta... or konpon, izurri adi.

ARANTZAZU

Erri piti onetako gazteak berebiziko mutillak doguz erri-kutsuzko jaiak eratuten, eta burukomin ugaririk izaten dabe erriko jaiak urreratzean.

Asken urteetan Udaletxe'ko laguntza miriz samartxoa jaso izan dabe, aurten baiña, naiz-ta urte bedartzua izan, beiaren errapea iñoizkorik leorren eta txaletara antzu, Eta gazteak gazte diralarik... auzo-errietako aizea artzea erabagi eben.

IGORRE

Ze taiuteko Andramariak izango ete doguz? Geurerik ezer nai ba'dogu ta katuari bizerrik kendu edo moztu bear ba'litzakio, gogorra izaten dau-ta, aurretiz beratu bearra izango yake Gurtubai ta Landajo bizermotzaleai.

EZBEARRA

Jakin begie Dima'ko Karlos eta Luisito-Koldo'k, ezbear garratza izan dauala Lekanda'tar Iñaki'k, eta Perez Galdoz'ko San Antonio osatetxean 423'gn. gelan dagola aldi luzerako, zoritxarrez.

LANDAJUELA'TAR A.

Basauri

Amaitu da «Baskonia».kirol bazkunak antolatuako gaztetxuen zein geiagoko ostikoketa, eta Ariz'ko taldeak eroan ditu garaikur guztiak; mutikotxuen mailla bietako txapeldun urten dabe eurok-eta.

Ez dabe orrelako zoririk izan Arizgoiti auzunekoak, naita kementsu aurkeztu izan «El Porron» dakoak, lenengo saioan ezeztu ebezan jokatu eben taldean-eta, zer egingo yako ba, beste baten izango da zerbait obea! Orraitiño poztasun bat izan dabe auzune ontakoak; «Gaztañabaltza»'ko kideak irabazi eben gaztetxuentzako leiaketa ortan ipiñita egoan sari berezia. Aurrera mutikotxuak! orretara jarraitzen ba'dozue zerbait izango zaree-ta.

EGIZ TA ARRABOTS

Milloidunen ikastetxea esaten dautse Basozelai'ko ikastetxeari... Ikasleak gaitik? Ez-ta! daukezan artzedunak gaitik.

Erriko edatetxe batzuetan jatsi egin dabe ardaua... Salneurrian? Ez gizona! Ontasunean.

Beste edatetxe batzuk ostera errealbiko txintxiña kenduko ete daben itxaroten dagoz... Jakiña, txintxin orrek eskuartean ez erabiltearren izango da? Bai zera! Txikitoa bi lauerlekora jasoteko.

Goazan abiadan ba'goaz, ateaurreak baiño edatetxe geiago eukiko doguz Basauri'n... Ainbat obeto mutil! Gure gaztedi kementsua indargabetu ta itsutan eukiteko.

Basauri'ko Abesbatzean, erriko beste alkarte batzuetan jazoten dana jazoten da: Ez dagoz diran guztiak eta dagozan guztiak be ez-dira.

«San Miguel» auzuneko biztaleak salatu egin bearko dabe «Echevarria» landolea, egunik egunera gorri agotuten dabelako erri-egurats edo aizea, ta ori, iraultza bat dalako.

Eta zergaitik dirdiratuten dabe Basauri'n agiritegiak? Beren ezagaitik.

KOLDO

Oñati

SANJOANAK

Sanjoan-Sanpedruak igaro dira. Erri onek ba-ditu bi auzo, izen oietakoak. San Joan auzoa bata, eta San Pedro bestea. San Pedro auzoa askotzaz aundiagoa da. San Joan izeneko Anaidia baiña San Joan txikiagoak, San Pedrotarrak ez dutena.

Ez dakit noiztik etorria dan oitura ori. Egun ortan Anaidiko nagusi egiten duana, anaidiko ikurriñarekin dala, or joaten dira euren txistulari ta guzi, San Joan'go Baselizara. An meza nagusia ospatzeko. Urte asko oneitan Arrazola'tar Errikarda jauna da Anaidi ortako Nagusia. Aurten egun ortan, meza nagusia Arrazola'tar Jose Luis apaiz jaunak eskeñi zuan. Itzaldia Lasa'tar Frantzisko agustindarraren gain egon zan, ta San Joan'en bizitza agertu zigun.

SANPEDROAK

Sanpedrotarrak ez dute anaidirik, baiña auzoko jaiak aundikiro gertatzen ez dira mutil makalak. Bagillaren 27'an ospatu zan zar-sarituen eguna. Aurrena meza nagusia, meza alkartua zar-sarituak eta itzaldia Agirrebaltzategi apaiz jaunak. Ondoren Ikastetxe nagusiko anarbe edo klaustuetan, amaiketakoa bazkaltzeko gogoa egiteko. Bitartean, bertsolari, dantzari, kitarriste ta abarrek, saio batzuk egin zituzten. Sari batzuen zozketa ere egin zan. Zoria izan zutenak jaso zituzten eta aurrera. Jaiari bukaera emateko, guziok zutik jaiki ta «Agur Jaunak» abestu genun. Baiña Zar-sarituentzat egon-leku egoki bat noiz...?

ZARATAK

Aldi ontan, bi meza nagusitan egotea gertatu zait. Goian aipatutako biotan. Bietan entzun ditut txistulariak jota «Agur Jaunak» apaiza ogi ta ardoa Jesus'en gorputz eta odol biurtzen ari dan une santu ortan. Une ortako iñolako soiñuk neri ez dit atsegiñik ematen. Une ortan ez litzake apaizaren itza besterik entzun bear. Lenago maiz marmazitan aritu izan gera, zerbait entzutean. Neri «Agur Jaunak» 'ren doiñua atsegin zait, Zar-sarituen jaia bukatzean bezela. Baiña beste une ortan ez bata ta ez bestea, ez nituzke entzun nai. Apaizarena baiño.

ERRIKO-SEME

Anakabe'tar Eujenio emen egon da bere udaberriko egon-alditxoa egiten. Urte askotik Bilbo'n biziarren, etzaio bere jaioterriarenganako maitasuna aaztu. Etortzen danean ez da Ikastolako umetxoekin aaztutzen; eskupeko ederra utzi ta joaten da. Eujenio, urte askotan etortzeko izan zaitezela.

ERRI-ZALE

Usansolo

EZKONBARRIAK

Begoña ezkondu jaku, igaro dan illean. Gure auzunetan, ez dago nor dan esan bearrik Bego; baiña zuori, Usansolo'koak ez zareen AGUR'en irakurleori au esango dautzuet; Begoñita dala gorputzez txikia, baiña abesti lanean, inguruan daukagun emakumerik alaiena, beti irribarrez, ta kitarra eskuan daukala, zoragarria.

Euskerazko mezeren asikeretan, an egoan beti, arduratsu euskel abestiak goraltzen. Gero, jakiña. Gure emakume geienak egiten dabena: Juan Mari'k begikune ona ipiñi eutsanean, agur.

Gaur bai ta biar ez. Baiña oso jatorra alan eta guzti bere, euskeraren arloan. Ezkontzan bere, ta liturji barriagaz lenengoz Usansolo'n, gure biotzak kilikilitu ebazan, bere senargaiari baietza emonkeran, euskera garbi ta sendoan, Gure auzunerako sendi jator ta euskalzalea irabazi dogula uste dot, onein ezkontzeagaz. Zorionak Juan Mari ta Bego!

Baiña eskari bat egin barik ezin amaitu: Orain senarra etxean daukazu, ta ea Begoña, sarriago abesbatzarretara egertzen zarean, edo obeto esanda, ea biok zatozen.

IBILLI-ALDIA

Iga lez, Bagillan, abeslari guztiak, ta baita beste adiskide batzuk be, ibilli-aldi bat izan genduan, gure lur maitea obeto ezagutu gurean. Tamalez egun bi bakarrik zirean, ta ezin gauza andirik egin eurotan. Baiña ondo atera geutzezan eurok eukien un guztia, egun bi orreiri: Donosti, Ondarrabi, Biarritz, Baiona, Kanbo, Donibane Garazi, Luzaide ta zenbat eta zenbat inguru eder!

Ego-euskalerrian irudi ederrak ba'ziran. Zer esan Ipar aldekoakatik? Non obeto, non gure begiak atsegindu ziran geiago? Erantzuna ez da erreza.

Idazlantxo onek, aldizkari guztia bearko leuke ibilli-aldi orretan izan genduzan ikuste ta egiñak azaltzeko. Baiña au lortu ezin dan ezkero, bai zeozer esan bearra daukat. Dana zoragarria ba'zan, toki danetan gauza ezbardiñak gure zaletasuna iraultzita, indar barri bategaz agertzen ba'zan, danoren ganetik Luzaide-Balkarlos'en izan genduan jaia, gure barruak ganezka ipiñi ebazan.

Erri onetan, Pasko aldian izaten dira jaiak, baiña gaztedia egun areitan barik, beste igande baten alkartzen da, bazkari bat izateko. Ta gure zorionez, gu Balkarlos'era aldu giñan igandean izan eban bazkari ori.

Zelan esan an izan genduan jaia? Non aurkitu itzak an lortu zan alkartasuna, Napar eta Bizkaitarren artean, esateko? Napar abestiari, Bizkai'ko erantzuna; Jautegi'ko soiñu sutsuari Amaia'ren ezti soiñu gozoak erantzuna emon... ta askenez jantza aldi baten ondoren, biribilketa baten laguntasunagaz, danok, Naparroa ta Bizkaia bat eginda, berebillera.

Azken agurra eginkeran, gazte zintzo areik, dei bat egin euskuen: «Urrengo Pasko-aldiararte, ondo etorriak izango zaree usansolotarrok!». An izango gara, orain ipiñitako oiñarriari jarraibidea emoteko.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Berriz

Gorpuzt-egunean. Merzedarien ikastetxean, jaialdi bat egin zan, beste urte batzuetan lez. Eguraldiak askorik lagungu ezarren be, naikoa lagun batu gintzazan bertan.

Jaian parte artu ebenak oneixek izan ziran: «Izarrak» taldea, berriztarrak, Azkoitia'ko «Euskal-Gaztedia», gero beste neska jator bi be bai, azkoitiarrak: Arregi'tar Mari Jose, 14 urtekoa, Europa'ko txapeldun «Excelencia C», eta Belen Figueras, 11 urtekoa, eta azkenez, Eibar'ko Baleta, Untzueta'tar Juanita zuzendari zala.

Jaia polito egon zan, eta zorionak emon bear, AGUR aldizkari onen bidez, Berrizbeitia'tar Benizia'ri, jaia gertatu ebana bera izan zalako. Baiña... auxe be ezan bear: zuzendari egin eban gizonak ez ebala ezertxo be euskeraz berbarik egin, geienok euskaldunak izanarren. Noiz arte olan? Ez gagozala, ba, Katanga'n! Ala bai? Batzuetan ezbaitan gelditzen naz. Baiña, Berriz Katanga ba'da, onen-onena Euzkalerrira joatea izango dogu, berbetan geure izkuntzan egiten entzun daigun. Noiz itxartuko ete-gara, jentiak? Pentekoste-egunean Jerusalen'en Apostoluari entzutera batu ziranak, bakotxak bere izkuntzan egiten entzun eutsen Apostoluai. Orixe irakurri euskun Miota'ko mezatan San Agustin'go abadeak. Orduan, egun aretan, mirariz entzun eben alan; baiña, aitaturiko Gorpuzti-eguneko jaialdian ez zan mirari ori egin erderaz baiño ez geutsan entzun-eta. Ala, mirari bat egin bear izango ete-da gure artean euskeraz egiteko? Alakorik!

Gorpuzti-egun berean, iru neskatok eta beste iru mutikok egin eben lenengo Jaunartzea San Agustin'go elizan. Euretariko batek, beintzat, euskeraz atara eban bere Jaunartze-gomutapena. Zorionak sei umetxuoi, euskerazko gomutagarria atara eban Idoia neskatotxoari batez bere!

Lengo 18'an urteroko ibillaldia egin eben Miota'ko eskoletako neskatomutikoak euren maistra biakaz; Donostia'ra joan ziran.

Ibillaldia erderazko eskurziñua da. Eta igaz Logroño'ra egin genduana datorkit gogora. Eta aurten, nora? Aurtengoa apartekoa izango ei'da, entzun dodanez.

Baiona'ra, Prantzi-aldeko Euskalerrira. Logroño'ra beste kilometru dagoz, eta igazko prezioa izango ei'da, gutxi gora-bera: 150 peseta. Ez da bear pasaporterik. Baiña, kontuz: obe da bazkaria bakotxak berak eroatea, an karuago izaten da-ta (baita irabazi be emengo beste iru geiago). Nok gura dau joan? Bizkor ibilli izenak emoteko, 36 leku daukazan autobusa daroagu-ta. Andikaleko Euskalerria ezagutu nai dagiana, etorri beite. Lotan jarraitu nai dabenak, barriz, etxean gelditzea ondoen, lo asko egin dagien.

KARMELE

Etxebarria

Bizkai ertzean, Kalamuaren babespean ECHEBARRIA izena daroan erri bat dago. Erri aren izena euzkeldun askok ezin dabe iñundik iñora be ikasi. Erri a, bere lur ta inguru, tajuz, oso atseginña da. Asarrerik ez dau egiten. Ara doazenentzat arrera ona dau.

Nai Elgoibar aldetik bera ba'zoaz, nai Markiña aldetik gorantz igoten ba'dozu, letrero idazkun au jarten dautzu: «ECHEVARRIA». Alderdi bietatik izen bat bakarra. Erriko-etxe sillura ba'goaz, an, «San Andres de Echevarria« jarten dau.

* * *

Izen au dala-ta, asi garan ezkero, beste gauza eder bat aitatu gura neuke. Etxebarriarrak gauza eder bat dauke, bertan, bera astuta itzi ezindakoa; berbeta jator bat. Etxebarriarren izkuntzari berak barruan daroan arnasa dario.

Bost-sei lagun nai ogei geiagoren gora-beera ez da. Baserri etxe guztiak dira jator, euren berbetarako buru argi ta biotz zabal. Euretariko bakoitzak maisu bat dirudi, norbaitekin izketan asten diranean.

Ikastolea erria bera da. Etxeak, mendiak, ibarrak, ibaiak zerbait egokia dana aukeratu dabe eurentzat. Ta aldien joanetorrian bizikera bat eta bizia agertzeko itz-egikera eder bat antolatu ditue. Erri barruan bizi direnak ez dira geiago ta ez gitxiago, ta basetxeetan dagozenak goi aldeetako arnasa zar ta garbia zabaltzen dabe erbera alde guztira.

* * *

Etxebarriko izkuntzak indarra daroa bere kirio ta odolean. Itzak josten dituan aditz-berboa auzarta da. Lengoa, oraiña ta geroa agertzeko bizkorra da. Eziñik ez dau ezagutzen ta gitxiago onartzen.

Nork, nori, noren, norekin, noz, zer, zergaitik, zertarako, norenak, berbeteak dituan zertzelada sakonak argi-argi, ta bizi-bizi, agertuko ditu iñungo ezpairik bage Etxebarriarren euskal aditzak. Bere kirioa sendoa dau ba ta ukatu eziña. Umekeririk ez dau erabilliko, orretarako ez dau bere jeniñoa ta.

Berbeta mamitsua da Etxebarri'koa. Kalamua, Malax eta Arno'k inguratuta dauke. Lurralde onek sendoak dira ta bertako zugatz tantaiak lur onen frutu garbi ta mamitsuak. Lagunak ez eben utsik emon bateren bat banatu ezkero.

Aditza gure alkar-izketa guztia josten daben ardatza da. Ta atan bere, Etxebarriarrei berbetan entzukeran, berez, biotz ukitu egiten naz. Bazkari ederrena uts geratuko litzake, areen berbetea entzutearen ondoren, Aditza, joskera, esanak ta, mamin mamiñak izanik, euren izkuntza mamitsu ta gozatsua sortzen dabe.

SOLOZABAL'DAR PAULIN


AGUR, LYNTXU!

Oraintxe da urte bete pasatuxea Ipar-Ameriketatik gazte sail bat Euskalerri'ra etorri zala; Reno (Nevada)'ko Ikastetxe Nagusiko eta beste Unibersidade'takoak ziran, euskera ta euskal-gayak ikastera zetozenak, ango iru irakasleekin batera. Ustaritz'ko «Landagoyen»-ikaslekua zegoen ikastaro ori egiteko aukeratua.

Ikasle talde ortan, jatorriz euskal odolekoak ziran geyenak: Rementeria, Zenarruza, Iriarte, Gastañaga, Antzo, Irazeburu eta abar. Bañan geyenik arritu ninduna auxe izan zan: talde ortan, euskal-odolaren arrastorik ez zeukatenak zetozela! Davis, Byrnes, Leonard, Rea, Lumdy... Eta euren artean, zu, LYNNE FEREDAY!

Lenengo egunetik euskera gogotik ikasten asi ziñaten nerekin. Ikastaro ori illabete ta erdikoa bakarrik izan bear zuelako, ikasgayak pizkor eta azkarki eman bearrak genituen. Zuen artean ba-ziran, bat edo beste, lendik euskeraz zekitenak; beste batzuek, berriz, apur bat besterik ez; bañan geyenak euskeraz ezertxo ere ez zekitenak, eta euren artean, zu zeunden, Lynne Fereday andereiñoa.

Len esan dudan bezela, euskera-ikasgayak azkar antzean emanak izan arren, zu ez ziñan atzeratuta gelditzekoa. Bai zera! Ikusi bearra zan —arrigarria bai zan!— nolako zaletasunez jarraitzen zenituen, egunik eta ordurik batere galdu gabe. Eta zu



ain gogo biziz ikusirik, nere baitan onela galdezka uzten ninduzun: «Bañan Amerikar neskatil oneri nundik datorkio gure izkuntza apala ikasteko gogo berezi ori? Zer dalata du euskera menderatzeko kemen arrigarri ori?». Ikasgai bakoitzaren asiera ta bukaeran, entzutekoa zan zure abots atsegiñez zeñen gartsuki abestu oi zenduen...

«Goazen danok batera
euskera ikastera!...»

Egun gutxi barru, Ustaritz inguruetako euskaldun asko adiskide egiñak zenituzten. Zuen euskal abesti, dantza ta jolas alayen lekuko da «Landagoyen» ikasleku paketsua. Euskera ikasten bezin pizkor eta gogotsu ari oi ziñan gure abesti zar eta dantzak zureganatzen. Eta euskal gai guztietarako zure biotz beroataz oarturik, ango euskaldun neska-mutillak LYNTXU izena eman zizuten, eta arrezkero, LYNTXU izena deitzia... euskal bizi berri bat aipatzia zan...

«Goazen danok batera
euskera ikastera!...».

Euskera ta euskal-gayak ikasiaz batera, Euskalerria'renganako maitasuna geitzen joan zitzaizuten biotzetan. Ikastaro orren ondoren, jakiña, zuen etxeetara, Ipar-Amerika'ra itzuli ziñaten, bañan alik lasterren berriro gure errialde ontara etortzeko asmo biziz...

Igaz bezela, aurten ere «Ustaritz'ko «Landagoyen»'en egitekoa zan ikastarora etortzeko erabakia zeunden. Alabearrez, ordea, ezin aurrera eraman izan da ikastaro ori, bañan, zu, Lyntxu, Ikastetxe Nagusi'ko zure azken ikastaroa amaitu bezin laster, Euskalerri'ra biurtu zera, gure izkuntza sakonki ikasteko asmo ederrarekin. Ze poza Ama-Euskera'rentzat! Eta ze alaitasun-dardara Ama-Lurra'rentzat!

San Juan bezpera zan eta Oyartzun'en azaldu ziñan. Igaz ezagutu zindudan bezin alai, pozgarri eta xarmant agertu ere! Gure dantzaldia ta abestiak entzun ondoren, apaltzera joan giñan Altzibar'era; eta antxe zurekin batera, Donosti'ko Etxeberria aita ta bi seme, Bayona'ko Larrieu gaztea ta beste bi lagunak ze nolako jardunaldia izan genduen! Eta dana euskeraz bakarrik! An EUSKERAREN LEGEA, zuk, Lyntxu, zuk ezarri zenduen apari gogoangarri artan!

Apalondoan, udako zure asmoak azaldu zenizkigun; eta asmo danen artean, euskeraz ongi ikasteko gogoa zan. Ortarako, euskaldun sendi bat arkitzia nai zenduen, etxeko umetxoai inglesa erakutsi trukez, sendi artan bizi euskeraz aritzeko aukeran. Etxeberria jauna gelditu zan eginkizun orrekin, eta nik ongi aski dakit, alegia, Etxeberria senar-emazte leyalak nolako arretaz eta ardura aundiz sayatu ziran zure asmo jatorrentzat lekurik bereziena billatzen...

Eta alaxe, andik egun batzuetara, Uztailla'ren 1'erako aukeratua zeneukan zure sendia; euskaldun zintzo izatez gañera, sendi maitekorra bera, bi neska-mutil zoragarri zitula: Donosti'ko Martiarena'tarren sendi ona. Zu ta sendi ori alkar ezagutu ordurako bat egiñik gelditu ziñaten...

Biaramonean, Donosti zarreko ikastolako umetxoekin ibillaldia Aralar'era... Aurkezterakoan, itz pozgarri abek esan zenizkion Faustina andereñoari: «Amerika'n jayoa, bañan BIOTZEZ EUSKALDUNA NAIZ!». Andereiño, aurtxo ta guraso sallarekin batera, zu ere antxe joan ziñan berebillean sartu ta txori alayak bezin pozik kantari...

«Aurrak ikas zazue
euskeraz mintzatzen...»

Ura eguna! Jolasak emen, eta abestiak an. Algara ta irrintziak nunai... Eta zu, Lyntxu, danon artean jolas eta dantzaetan..., ta euskal itz edo esaldi berriren bat entzun orduko, luma artu ta paperean idatzi ta idatzi ibilli ziñan. Euskerazko ikasgairik ederrena jaso zenduen egun artan.

Illunabarrean etxeratu ziñatenean, pozaren zirarra nabaitzen zenduen zure gorputz guztian. Ainbesteko zorionaren jabe izatia zail iruditzen zitzaizun, nunbait, eta baita zuk galdetu ere Martiarena'tarrai: «Pozik nago! Egia ote au dana?». Orduan, dana ori ala zala egiztatzeko, zerorrek bi besoetan zimiko egiñaz, pozkarioz beterik esan zenien: «Bai! Egia da!». Ta danak besarkatu ondoren, biaramona arte agurtu zenituen.

Biaramonean ondartzara joatekoa ziñan etxeko bi neska-mutillekin. Baña biaramonean...illa..., lurrean zerraldo arkitu zinduten...

Ene! Ori gertaeraren garratz eta latza! Ori gertaeraren mingotza! Zure 22 urteekin ain bat-batean alde egiten ikusi-ta, atsekabez beterik gelditu gera, ta negar egin dugu danok! Negar guztiok, eta bereziki Ama-Euskerak, bere kuttun bai zindun dagoanerako! Eta aren malko mardulak maitekiro jaso ditu Ama-Lurrak, euskeraren frutu berrien ongarri betiraunean izango dirala bai bai-daki!

Agur, Lyntxu! Euskaldunok ez zaitugu aztuko egundaño, gure izkuntzarentzat zu izango bai zera eredurik polit eta maitagarriena, eta ikasbiderik ederrena Euskalerri osoarentzat! Lyntxu, biotzez agur!

ONATIBIA'TAR YON

ZER EDO ZER

MEZZOFANTI KARDENALA TA EUSKEREA

Izkuntza gayetan gizon ospetsurik izan ba'da, Mezzofanti kardenal ospetsua izan zan.

Bere bizitzea idatzi eban Walter Minardi'k diñonez, 135 izkuntza ta 54 izkelgi (dialecto) ezagutzen zituan. Gorputzez txikia izan arren, buruz argi ta biotzez oso ona izan zan.

Arotz baten semea, Bolonia'n 1.774'gn. urtean yayo ta 1.849'gn. urtean Erroman il zan.

Txiki-txikitatik izkuntzak ikasteko erreztasun arrigarria agertu eban. Amabost urterako latiñez ganera gerkera, eberkera ta oingo beste amar izkuntza ekizan. Abade egin baiño len, 21 urtegaz Bolonia'ko Ikastetxe Nagusian, sorkaldeko izkuntzan irakasle izan zan. Beartsuen adizkide ta laguntzaille ona zalako, XVI'gn. Gregorio Aita Santuak, Batikano'ko Idaztitegiko buru izentau ebanean, Bolonia'ko txiroak negar baten gelditu ziran.

Erroma'n ainbeste izkuntza ekizelako «Pentekostes Bizia» deitzen eutsoen eta, ara yoaten ziran erbestetarrak, bera ikusi barik ez eben biurtu gura izaten. Baten batek itandu leike: —Euskekarik ete ekian? Bai, eta ondo atan be. Au egiztuteko ara Pio Mortara, agustin'dar ospetsuak idatzi ebana, itzez-itz: «Euskaldun batzuek Erromara joan ziran, ainbeste izkuntz ezagutzen zituan Kardenal Mezzofanti ikusteko gogorik aundienarekin. Bein bidean billatu zuten, arrotz batzuekin, bakoitzari zegokion izketan itz egiten zuela. Orduan ixill-ixillik esaten zuten gure Euskaldunak:

—Gure euskal-izkuntza ezagutuko ote du?

Eta bereala erantzun zien Kardenal Mezzofanti'k:

—Bai, ori ere bai. Aita Mortara'n itz oneik, Estanislao J. Labayru'n «Historia General de Bizcaya»'ko lenen ataleko 686 gn. orrialdean ikusi zeinkez, irakurle. Edesti onen bigarren argitalbena, «Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca»'n dago.

BESTE EUSKALZALE OSPETSU BAT A. PIO MORTARA

Au be Jose Mezzofanti'n antzera Bolonia'ko yayo zan. 1.851'gn. urtean yayo ta Europa'ko bigarren guda oste inguruan il zan, Montmartre'ko katoliku biurtutako yudatarren kapillau zala. Yudatar sendikoa zanez, ez eben bateatu. Baiña urtebeteko zala ilteko zorian gexorik egoala, seintzoñak, katolikua zan eta, gurasoei esan barik bateau egin eban. Zazpi urte ingurura eldu zanean, «norbaitzuk» gurasoen baipen barik Erroma'ko katoliku ikastetxe batera eroan eben katoliku asiera ta ezien emoteko. Onetan, Bolonia'ko uria Aita Santuaren arerioen menpean yausi zan. IX'gn. Pio'k mutiku au bere ardurapean artu eban, eta Edgardo'k bera be, gurasoak maite izan arren, eta artu-emonik galdu ez, katoliku zala-ta ez eban gura izan etxera biurtu. Eta lengo gizaldiko auzirik ospetsuna «Mortara'n Auzia» izan zan. England'o Prantzi'ko agintariak be tartean sartu ziran, izparringi guztiak', batzuk baten alde ta bestiak bestean alde, illetan ekin ta azken baten, Edgardo'k berak ebatzi eban. Amabost urtedun zala, adin orretan yudarren legez be eskubidea eukala, Laterano'ko Agustin'darretan sartu zan. Gero bere gopatz edo ordenan ospetsu egin zan. Gizaldi onen asiera inguruan prantzetar agintariak andik yauri egin ebezan lekaideen artean Oñate'ra etorri zan. Bederatzi illabetean Euskera ikasi ta Bizkaya ta Gipuzkoa'n euskerazko itzaldi asko egin zituan. Eta ondiño ba'dira Euskerea gatxa dala esaten dabenak. Alperkeria errezagoa ez ba'litz, Euskera gatxa ez litzake izango.

Nik, Gazteiz'en ikasle nintzala, 1.908'gn. birritako aldiz beragaz itz egin neban. Oso gizon argia ta apala eretxi neutson. Zertzelada geyago «The Mortara Mystery» *idaztian ikusi leike.*

GAMA

ERRI-IZAERA

Ekonomiak, erri-izaera batzuek ito ta beste batzuek loratu arazi oi dituzan zetan esanik be ez dago. Baserri bizitza mekanizatzeak eta lantegi-ugaritzeak garratz batek, abenda-etnia betiko il, edo gizaldi batzuetarako gogortu egin dikee.

Beren buruen jabetasuna lortu naiez, burrukan diarduen erriak, bere ekonomi alderdia kontuan euki oi dabe. Begira bestela Ipar-ameriketa. Ern alde onen sorreran ekonomi arazoa nagusi izan zan. Zergak Inglaterrari ordaindu nai ezta burrukatu ziran amairu kolonia areik; gaur Ipar-ameriketako erri alde indartsua osotzen dabe.

Au olan dalarik, ona emen euskalerriko ekonomi ta gizarte arloari buruzko azalpen batzuk: Zatitu daigun euskalerri osoa bost ataletan, Ipar aldea, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Naparroa.

Ikusi daigun giza-mailla:

	1900 urtea	1965 urtea	Aldea
Ipar aldea	260 milla	210 milla	50.000 gizaseme galdu
Araba	96 milla	173 milla	77.000 gizasema geitu
Bizkaia.	310 milla	914 milla	604.000 gizaseme geitu
Gipuzkoa.	196 milla	567 milla	371.000 gizaseme geitu
Naparroa.	307 milla	427 milla	120.000 gizaseme geitu

Oartu emen: Ipar aldeko euskalerri zatia geroago ta beerago doala, urterik urtera euskaldun gizasemez utsituagoa. Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n «explosion demografica» deitu oi dan giza-ugaritzea oso indartsu gertatu da, azken urte oneitan batez be.

Orrez ganera kontuan artu bear dogu, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n sartu dan jentetza aundi au atzerritarra dala geien bat. Bizkaia'n % 50 erdaldunak eta Gipuzkoa'n % 35.

Zer eraginda etorri dira oneik gurera? Abiada onen asieran indar bi ikusten doguz, batez be. Lenengo ta bein, gure berezitasuna makaldu bidea. Ardaoa beroa ba'da, ura geitu, edo beste ardao makalago bat, eta orra 7 graduko ur epela, beingo baten. Eta bigarren, gure ekonomi zuzendarien, edo euskalerriko lantegi arduradunen itsukeria. Irabaziak ugariak izango ba'dira, langile merkeak bear, eta nor ortikoa baiño merkeagoa? Orregaitik era bateko edo besteko lantegi ugaritzea erdal errietan sortu bearrean, onea bultzatu ango jendeari, ta kito.

Gaur, ikuspegi onen aurrean biderik egokiena auxe iruditzen jaku. Lenengo ta bein, gizonak beretzat eta bere senideentzat ogia (au da, bizibide osoa) irabazteko daukan eskubidea onartu. Au berezko eskubidea bai da. Baiña eskubide ori nun erabilli oi dan, baita ango erritasuna onartzera beartu bere. Au be berezko eskubidea bai da. Ogibidea dagon lurraldera aldatzeko daukan eskubidea besteko sakona deritxogu, lurralde ortako izkuntza, oitura ta abar onartzeko betebearra. Ez da mundu onetan eskubide utsik-eta. Eskubide bakoitzak bere egin-bearra daroa.

Urrengoan azalduko dogu gizarte mailla au ekonomi arloarekin bat egin ezkero zertara zuzentzen dan euskalerria.

BIDEONDO'K

AGUR

II URTEA
19 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - DAGONILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

EIZTARI

Eiza-aldia eiztarien poz-aldia izaten da.

—Gizonaren asazkaldien artean, gure-tariko bat dala uste dot eiztaritzea. Neu eiztaria izan ez arren, eiztarien poza errez aitzen dot. Sarritan guzurrak esaten ei dabez, baiña beintzat, oso pozik ibilten dira euren eiza-aldietan goraberak edestuten.

Nondik ete datorko gizonari pistiak illeak emoten dautsan poz ori? Zergaitik ez ete dautso bere izakideak ilteak samintasuna ekarten, poza ekarri bearrean?

Nik uste dodanez, alde batetik gizonaren barruan doan gogorkeri bat erakusten dau poz onek; gizonaren barruan griña txar bat doa, eta bere adimenak eta naimenak aginduko ez ba'lebe, griña txar ori agiriago ibilliko leiteke. Gizona berez da burrukalaria, baiña sarritan burruka-zaletasun ori menperatu egin bear, eta ara non agertzen dan eiztarietan poz-emoille dan burrukalaritza ori, izkide ditun pisti errukariak illez.

Baiña ba leiteke, baita, eiztarien pozazen iturria beste bat izatea.

Eiztaritzea trebetasun bat agertzeko he izaten da. Eta trebetasuna agertzeak gizonari poz aundia emoten dautso. Baita egia da beste izaki guztiak bere menpean ezarri jakozala; zeruko egaztiak, itxasoko arraiñak eta basoetako pistiak.

* * *

Gure asaben lan bakarra eiztaritzea zan: lurrak emoten zituan igaleak artu, itxasoak edo ibaiak ekarten ebezan



arraiñu oratu, egaztiak eta pistiak atrapau... eta bizi.

Gero leiza-zulo sakonetara sartu eta an zaldiak, auntzak eta beste basapistiak marraztu, onetan orduak igaroaz eta sorgin-arerioak uxatzen ebazala siñistuaz.

Pistiak, egia esan, bera baiño indartsuagoak ziran, baiña bera zurragoa: pistiakaz aurrez-aurre ezin burrukarik egin, orregaitik berak lurrean, pistien bide-pean, zuloak egiten zituan eta zulo orreik ondo estaldu, eta ara jausten ziran pistizarrak, beretzako janaria.

Gaurko eiztariak era au ez leukee onartuko, baiña orduan asko geiago ezin egin. Orduan gizona ez zan gurarizko eiztari, bearrezkoa baiño: bizitekotan jan egin bear eban. Gaur eiztaritzan eta arraintzan ezin azpikeririk erabilli.

* * *

Eta zeintzuk ete dira gure eizetan geien billatuten doguzan pistiak?

Geienak, bear ba'da, egaztiak; erbiak, basa-kuiak eta basurdeak aiztu barik.

Orain Gastela-aldera galeperretan, iraillean Salamanca ta Zamora-aldera eperretan, urrilean uso-igarotzea iparaldetik egoaldera Auñamendi inguruan Naparroa-aldean, azillean oillagorrak, etorten jakuz otzari iges egiñez eta edonon agertzen jakuz.


Eiztaritzan sakon sartzen diranen tzat egunik onenak uso-igarotzearenak izaten ei dira: euren sare aundiakaz antxiñako Garcilaso'k bere eglogetan adierazten dauanez, ainbeste uso igeslari atxillotuten dabez.

* * *

Gizonak beti, eta gaur iñoz baiño geiago, asazka-bideak bear ditu. Eta asazka-bide on bat eiztaritzea dau. Pisti errukarriak gogor artzen ditula? Tamala da, baiña... eiztariak eiztari.

AGUR

NAXERA



NAXERA'KO KRONIKA.—Kondaira onek antziñako Ixtoria dakargu gogora. Naparroa zaarraren kondaira, Ebro ibaiaren bi ertzetan zabalarik zegon denborakoa. Gaztel-erreiñua sortu aurretik Iruña'ko errege-gaztelu ondoren etsai berri bat sortu zitzaien ordea: egoaldetik zetozen afrikatar arabe mairuak. Auek Españi osoa menpean artu zuela guztiok dakigu. Naparroa'ren barruan ere sartu ziran Muskaria (Tudela) inguruan eta erriberatik oso gora igoaz. Bertan urte askotan izan ziran nagusi, ez izanagatik jaun eta jabe. Naparroa'ko errege-kin iñoiz adiskidetasun onean bizi izan ziran naiz beste errelijio ta beste oiturak ekarri. Ezin bizi bait ziteke beti burrukan, eta pake txarra gudarik onena baiño obea izan oi dalako tarritan.

Onela maomatar eta kristauak pake aldiak izan zituzten alkarrekin eta baita ere ezkontza eta beste ar-emanak.

Alderdi batekoak indar aundiegia artzen dutenean lagun urko ta auzokoa zapaltzeko griña maizko piztutzen da. Ori gerta zitzaion Abda-raman ta Cordoba'n bizi ziran Kalifa altsuei. Bazter guziak bereganatu nai izatea.

Ezkerrak garai artan X gizaldiaren azken aldera Naparroa'ko errege gazon bulartsu ta ausarta bat zala: Santzio Garzes III, SANTZIO aundi eta nagasiena deitua. Onek arabe ta beltz jende guziei aurpegi eman zien eta bai atzera bota leku askotatik. Orduan SANTZIO aundiena erregetzat aitortu zuten Naparroa'n ez ezik Bayona, Burgos, Leon eta Zaragoza'ko lurraldeak. Errege baiño geiago «Imperator» emperadore izatera iritxi zan...

Emen asten da NAXERA'ko kronika. Iri ontatik mairuak bidali ta gero Naparroa'ren mendean geratu zan, bere lurralde emankor, etekintsuenetatik Naxerilla ibai garbiak ureztatzen duan leku zoragarrian.

Errege-uri izateko tokirik berezi ta egokiena. Orrela aukeratu zuan D. Gartzia IV, Santzio aundienaren seme nagusi izan zanak. Gertakizun auek guziak oroiturik gaurko Naxera erriak urte batzuek onuntz antzezkizun eta ikusgarri eder bat agertzen du bertako Sta. Maria Errege-elizako kalostra bikañean.

Ixtoriatik egitazko gaia arturik Garcia Prado kondairagilleak liburuxka bat idatzi du eta Roberto Carpio antzezlari katalandarrak antzerki tajua eman dio agerraldi ta irudietan banatuaz. Musika, doiñu, dantza, argiune ta illunaldiak eten gabe azaltzen dirala, begi-entzumenerako agerraldi ertitsu ta unkigarrienak ditugu beti aurrean. Errege-jauregiko biziera, limurketa, burruka, gudate, eztai ta jaialdi; dolu ta eriotzak... Guzitik dago kondaira zear.

An datoz aritik ondo ekarriak Errege, erregin, printze, apezpiku ta abatak: Santzio aundiena ta bere emaztea, seme-alaba Gartzia, Erramiro, Pernando, Gonzalo; Oliba abata ospetsua, Silos'ko Domingo eta Oña'ko Eneko.

Antzezkizun guzian gertakari atsegiñetakoa D. Gartzia'ren ezkontza ta ezteitakoa. Ballet antzeko dantzaldi arras polita ateratzen dute, italiar kutsuko «madrigal» abesti eztitsua dirudiena.

D. Gartzia Catalunya'ko Estefania printzesa xarmangarriarekin ezkondu zan Bartzelona'ko Konde Berenger'en alabarekin.

Berenger Santzio aundienaren adiskide zan eta zerbait menpeko ere bai, Santzio orduan Hispania'ko lurraldetan altsuena bait zan eta Ferran Soldevilla kondairagille katalanak aitortzen duanez: «Rei del monts Pirineus».

Zorigaiztoz, geroztik urte asko ta illunak igaro dira ta zertara erori geran bai Naparroa ta bai Euskal-Erri osoa begi aurrean dugu.

Gure ixtoriagille ta politikariok aldi ura maiz aztertu izan dute Santzio aundienaren jatorri ta ekintza goretsi naiez.

Odol artako errege-erregin, senide ta inguruko jaun-andre aundikien ezur eta autsak Eliza barruko illobietan daude eortzirik. Aien artean Lopez de Haro Bizkai'ko jaunen ondakinak ere bai.

A. Moret, A. Kanpion, eta Orueta ixtoriagille argiek aien egite kementsuak gorapaitu dituzte. M. Iruxo, Naparroa'ko aldun sutsua izan zalarik, alegindu zan Naxera'ko Errege Eliza taillobien ardura Naparroa'ko Fuerodun Diputazioak izan zezan. Abertzale arduratsu oriei eskerrak ez dogu aantzi Naxera'ko kondaira ta gaur oraindik oroitzapen atsekabetu bat zuzentzen diogu.

Antzezkizunaren bitartez antziñako gizaldi aietara begiratuaz pozzirrada zerbait nabaitu dugu gure barruan. Orretzaz gaiñera, Errioxa'ko mugetan euskal toki-izen asko gordetzen dira, gure asabek utzitako urratz iraunkorrak!

Bizi berri bat emateko lain eta suspergarri izango al dira Naparroa eta Euskal-Erri guziaren etorkizunerako

ANTONIO M.ª LABAYEN

DIRUAREN INDARKERIA

Uda-aldiko beroak gizonaren lanerako kemena biguntzen dabelako-edo, oporrari begira bizi garalako-edo... ez dakit zergaitik baiña, munduko izkanbillak bere, zerbait otzitzen ete-diran itaunduko geunke... baiña, ez.

Ara edo ona begiratu ezkero, laister konturatuko gara, ori pentzatzea amets utsa dala; zitalkeria ta oiñazea neguan aiña dira. Barri-zabaltzailleak oporretan dagoz eta orregaitik egunkariak, irrati edo telebiziñoa txiroago agertzen dira, pakezko lauso uneak erakusten. Bitartean, gudak an eta emen, sorkaldean eta sartaldean, Pakistan'en, Sudan'en, Irlanda'n eta abar... ixilleko gudak ia mundu guztian sakabanaturik jarraitzen dabe...

Zer da guda onein elburu, oiñarri ta bultzatzaille bakarra? Dirua! Diruak indarra lortzen dau; dirua ta indarra alkartzean ez dago askatasunik; gizonaren eskubideen gaiñetik dirua da jaun eta jaube. Dirua ideoloji guztien gaiñetik dago zoritxarrez.

Munduko sistema aundi bi orrein arteko burrukan bere gauza arrigarriak ikusten doguz. Nixon, Txina'ra doa; bere laterriarentzat, politika aldetik, garaitza aundia danik ezin ukatu, ta munduaren pakerako bere, ongarria bear ba'da... baiña, beti *baiña* esan bear, salerosketarako lurralde barriak lortzeak ez ete-dau bultzatuko? Ez ete-dabiltza orren atzetik prantzesak, nglandarrak eta beste batzuk bere?

Eta Illargi'ra joan-etorrietako norgeiago ori? Zenbat diru eragilten da orretan? Orain-tsu iru errusiar gizajo il dira. Amerikarrak bere, arrizkoan dabiltza... Zerk bultzatzen ditu? Egia esan, jakintza aldetik mesede aundiak izan geinkez, baiña ez ete-dago premiña aundiagoko betetzen ez dan arazorik munduan? Or eragilten dan diruagaz Sahara'ko basamortua baratz izatera biurtu leikean eta baratz ortako emoitzak Aprika aldeko goserik geiena kentzeko bestekoak izango litzakez, baiña... zer ardura dautso munduari urtero milloi batzuk goseak iltzean?

Guk ezin dogu alakorik ulertu, baiña diruak bai, edo obeto esateko diru-indardunak; eta diru-indardunak ez dagoz beti margo bardiñekaz jantzita; diru-indarra, gorri naiz zuri naiz urdin, zitala da beti.

Emen gabiltza euskaldunok, ara ta ona begira; areik ezetz ba'diñoskue bestera jo bear edo jotzen dabe batzuk, kondairea zear izan doguzan irakaskintza garratzak iruntsi eziñik. Geien bear izan gendunean, laguntzea ukatu euskuen batzuk; besteak irri-parretsu datorkiguz eurena eskeintzen... eta ketoa beti keto, ta jausiko dira barriro bere batzuk sarean. Zeren truk eskeintza orreik? Gure nortasunaren, askatasunaren truk duda barik. Munduko erririk zaarrenetariko bat, ideoloji aldetik, jayo-barria bezela jokatzen, umezurtz bezela obeto esateko.

Danak ez dira, baiña asko bai gitxienez, diru-indarraren soka gaiñean dantzan dabiltza, konturatu barik, baita arrokeriz konturatuta, erbesteko soka-dantzan. Gizajoak gu, ta gizajoagoa gure erria. Diru bakoak gara (emengo dirua ba-dakigu nungoa dan) baiña txiro izateak ez du keto izatea esan nai.

Ez da dana galdu, ez orixe, baiña geure buruaren jaube izateko ez dautsagu kondaireari atzerik emon bear: Aurrez-aurre begiratu ta euskaldunaren lagunik bakarra euskalduna dala ikasi. Arrokeriz ez, baiña ez genduke errukirik bear, eta diru-indarrari, bada-ez-bada, jokoan ez lagundu.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

EUSKAL - ETXEGURASOENTZAT ETA IRAKASLEENTZAT ITZ BI

Euskaldunok erri berezia gerala egia da.

Euskal-gizakia eta bere izakera eta ezikera, Europa'ko errialde guztien artean, millaka urtez leenagoko aroetatik eldu zaizkigu.

Ondorio ori, aldian-aldiz berrituaz, eta indartuaz, iritxi zaigu. Eta geren eskuetan daukagu.

Ez da ori batek edo bestek asmatutako ondasuna; gure erriak —gizaarteak— menderik-mende berezko argiz eta indarrez eztiki-eztiki sortua, erabillia eta gaurdaño ekarrerazia baño.

Azken urte auetan zerbait galdu degu. Inguruetan eta barnean sartu zaizkigun gaizkiñak gure aurka gorroto bizian dauzkagu, eta gureetako batzuek —argalenak eta puzuniz belanduak— beren arbasoen iduria, bizi-indarra eta kemenak itzalerazi, erbesteruntz begiak itzuli eta andik beren ogi-zatia eta erdal-izena (!) itxaro dute. Ez ditzagun gorrota, erruki baizik.

Ez degu guztia galdu, ordea.

1.—Ba-degu lurraldea —euskaldunen esoña—, euskaldunai mendeetan beren ezikeraren ori, oñarri eta erreztasunak eman diena.

2.—Ba-degu soñean ere gure elkaarte au berexten duen ezaugarria: gure artean sortzen dire oraindik beste errialdeetatik larmentzen gaituzten gizakiak (euskal azkazia).

3.—Ba-ditugu oraindik leenagokoetatik datorzkigun bizikerak: abere-zaintza, nekazaritza, arrantza, menastagintza, eskulan asko, uxa-eiza, etc., aspaldiko bizimoldeaz kutsatuak.

4.—Ba-ditugu leendikako lanabes asko: eiz-makil, laya, nabar, estrazi, arrabil, zuzi, e. a.

5.—Ba-ditugu euskal-oikunde eta legeak, etxeari buruz eta erriari buruz, naiz eta burruka gorrian inguruko errialdeetatik sartu nai zaizkigun lege eta oiturekin.

6.—Ba-degu oraindik geren izkuntza. Ele berezia; eta bere muñetan, aspaldiko gogoeta eta goganbillak. Jainkoa **eta «Dios», esate baterako, ez dute gogoeta berdiñean beren sortzea; ezta** gogo **eta «espiritu»;** oñeztarri **eta «rayo»;** ilbeltz **eta «enero»;** astelen **eta «lunes»;** eguzki **eta «sol»;** illargi **eta «luna»;... Euskerak beste ezikera baten oiartzunak dakarzkigu: gure jatorrizko ezikerarenak, alegia; edo ta aspaldiko ezikeren kutsu eta susmurruak.**

7.—Ba-ditugu erlijiozko gogoeta eta buruzpideak ere, gizakiai eta munduari beren sortze, eginbide eta etorkizunazaz eraen soil eta joera larmen bat erakusten dizkienak.

8.—Ba-ditugu leen-sinismen eta esaunda asko, igan-aroetatik jaulkiak; oikunde zaarrak: arbasoen jaureste, gure etxe, eliza, elizaño eta iduri gurenai buruz dabilzkigunak, batez ere, eta ipui edo mito gogoangarriak.

9.—Ba-degu gure Euskalerriari buruz gertakizun askoren berri, leen-gizakietatik asi eta gaurdañoko kondaira berezia.

10.—Ba-degu kondaira eta ibillaldi orren ezaguera, berazaz jabetzen dire gure arteko asko eta eginbide ortan erdikide sartzen ere.

* * *

Orain esan deguna etxe-gurasoak ba-dakite noski.

Jatorrizko irakasle bai dire eta beren aurren ezierazle, ortarako egoki diren gai batzuezaz xeetasunak azaltzea ongi izango dala deritzat.

Esate baterako, ibiltzen, mintzatzen, ikaslan eta bizikeratan eta denean zuzen jokatzen aurrari gurasoak erakutsi bearreko gaiak dire, beren buruz edo besteren bitartez.

EUSKALDUNAI EUSKERAZ

Ba-dire ogeita amasei urte Gregorius von Breda'ren Die Muttersprache **(Munster, 1933) liburuari buruz argitarazi nituela orain emen ezarri bear ditudan irakasgai oek. Amaren altzoan ikasi izkuntzazaz alegia.**

Amagandik ikasten dan izkuntza ezikeraren gai aundienetakoa da bera, eta ezikera bere gain dakarrena gañera. Berak dakarkigu mundu eta gizakiazaz mendez-mende eta geldiro Euskalerriak eraendu duen ikusbira.

Izkuntza ikus gentzake, gizaki edo lagun bakoitzari begira; **baita erriari begira ere. Izkuntzak daramazki bazterretara gure asmo eta gogoetak. Izkuntzaren bidez gure iritziak eta galdeak elkaartean ditugu adierazten, baita ingurukoen adimen eta biotzak ere ukitzen.**

Egiak, esaundak eta eginbideak ikasi bearra ba-degu. Aldiz baita aitor eta erakus bearra ere. Ortan ordea gurasoen izkuntza, amaren altzoan ikasia, biderik egokiena, berez eta jatorriz gure neurrian datorkiguna, gure bizierarekin bat egiñik edo loturik dagoena. Nai ba'degu zerbait ongi ikasi, geren baitan bear degu bizierazi. Ori jatorriz degun izkuntzan egiten da. Besteen izkuntzetan, azal ikasi eta azal erakutsi.

Beraz, gurasoen eginkizun bear-bearrezkoa auxe da: aurrai beren izkuntzan —mendez-mende datorkien izkuntzan— ikasgaiak arreraztea, edo irakastea. Aurrak alditz, beren guraso eta maisuak ortara beartzeko eskubidean dire.

Euskaldun guraso izan eta beren aurrai euskera ukatzen dienak eta beren jatorrizko ele bizitik aldentzen dituztenak, bearbidea okertzen eta galtzen dute eta ondorengoai berezko lora eta kimuak iñusten.

EUSKERA ETA ERRIA

Amagandikako izkuntza ez da iritzien, asmoen eta naien adibide utsa; lagunen nortasuna ere adierazten du eta, batez ere, erriaren ezaugarri berezia da.

Erriaren ezaugarri bai eta ondasun neurrigabea. Berari lotuak eta bere bidez bai datoz erri-bizikera eta ezikerak, mendeetako ikas-uzta eta egintzen oroipenak. Baita erriak leendik dakartzen mundu eta gizakien iduria eta eginkizunen eraena-ere.

Izkuntzaren bitartez erriaren izakerak eta ezikerak iraun lezakete. Beraz, edozein errik bere izkuntzari eusteko eskubidea ba-du: eskubidea eta bearra. Izkuntza ori galerazten duana, erri-iltzalle (genochiria) gaizkin doakabea da. «Insitum enim natura est acceptam a proavis linguam amare tuerique velle». (Leon XIII, Bohemia'ko Apezpikuai, 1902'an).

Erri bakoitzak ba-du beraz bere izkuntzan jarraitzeko eskubidea: beste izkuntzen bidez datorkion ezikera ez da izanen berea, eraskin bat baño.

Jatorrizko izkuntza ezin gentzake alde batera utzi aurren ikaslanetan; oñez ibileraztea, adimenaren bidez egia iritxi dezakegula erakustea, zuzenbidean jokatzea eta beren bizikerentzat eraena —erlijioa— irakastea ere, ez. Ortan uts egitea, aurrak iizien mallan uztea litzake.

(Barandiaran'dar Joxe Migel jaunak idatzi eban lez argitaratzen dogu).

POZAK ETA KEZKAK

Ebanjelio barrian ete?—Gure irakurle batek bere berebillean daroan «Irakurri AGUR» ikusita norbaitek beste aldizkari batena ipiñi eutsan alboan berak eskatu barik. Alako baten, Arrati aldeko abade gazte batek esan ei-eutsan gure lagunari: «Orrek txartel biok «incopatibleak» dozak, kendu egik AGUR'ena». «Zeu zara, zu, incopatiblea» erantzun eutsan gure lagunak, eta «orain eskatu bakoa kenduko dot» esan eta *bestea* kendu eban.

Ikusten danez abade orren ebanjelio barriak anai arteko griñak sakondu bear dirala erakusten dau, ta bada-ez-bada, asarratuta aurki, orain ez dautso gure irakurleari agurrik egiten. Akerrak ete-gara benetan AGUR'ekoak? Ala abade ori modan dagoan «ogi-bide» aldaketan ete-dago?

* * *

Euskera Euskera.—Aste batzuk dirala, Basarri'k Z. A.'n iñoana irakurri gendun: Iru aldiz, goitik beera euskerazko (?) idatzlan bat irakurri ta ezin ulertu! Jakiña Iñaki! Zuk ez dozu oraindik bear dan aiña gaztelera ta prantzesez ikasi! Orrez gaiñera, orretarako «intelektuala» izan bear. Ez dozu iñoiz Euskaltzaindi'ko batzarretan jaun batzuk izaten dabezan eztabaidak entzun? Ez al dakizu zenbat prantzes dakiten? Baiña euskerarik... ez!

* * *

Mitoloji barria.—Lengo mito asko kentzen asi garan aldi onetan, beste barri batzuk sortzen dauzkuez. Lagun batek bialduta talde bateko aldizkaria artu dogu. Euskerazko lanen artean h'ez dositako ildako idazle baten lana agertzen dabe. Ez goaz, ez da gure oiturea-ta, ildako baten lanagaz sartzen, Goian Bego. Baiña lan ori «an» sartu daben «jauntxoaren» maltzurkeria bai salatzen dogu. «Mito» barrien sortzailleak, iñoren lumakin jantzi nai! Eta lumarik ez ba'leukee? Billozik geratu bear. Batzuk «h» ikurtzat; beste batzuk ikur ori onartzen; azken batzuk izki *baliotsu* ori besteen eskuetan ez lagatzearren be... sartu. Danok konsigna baten morroi. Barriro be guk, Hhhhtxis doministikun! esan bearko... eta zuzendariak ankaz gora.

* * *

Zuberoa ta Marxeliña Idazkariaren eskuetan dago. H'ak nun jarri aukeratzeko ete? Lenago be Alemania'tik artu ebazan neurtubako bertsoak beste orrenbeste egiteko, baiña ez ekianetik ziur nun jarri, praille bateri bialdu eutsazan. Onek be ez ekian askorik edo orren zalea ez izan-eta, erdipuidika argitaldu ziran.

* * *

Zarautz'en lengo baten: ego-aldeko bi ta ipar-aldeko bikotea. Oneik h'ak erabilten dabezenak baita oguzi be, baiña geienak kentzeko gertu. Besteak, ez oguzi ez nun erabilli jakin ez dakienak, jarri egin bear diralaka. A izan zan zalapartadadea alboko maian AGUR ikusi ebenean.

* * *

AGUR'ekoak atsegiñez entzun dogu, euskeraz idazten dan beste aldizkari bakarra, «GOIZ ARGI», amabosterokoa izatera datorrela. Orra ba, aldizkari bi izango dozuez amabostero ta euskeraz gaiñera. Aldizka jasotzen dozuezala, astero euskeraz zer irakurri izango dozue, ta ez bada-ez-badakoeri alperrik laguntzen nekatu. Gero, urtean lau bider «KARMEL», astero irakurriaz ikasten dozuena indartzeko.

* * *

Loiola'ko andereiño ta irakasle obeak lortzeko izan diran ikastarora joan nai eben neska batzuk, euskerantisten aldetik zematuak izan dira: okerren bat izango ebela ara joaten ba'ziran! Orretan gogorren ibili diranak, Jaungoiko bako eziketea nai daben apaiz eta lekaide antzeko bi, ta euren lagun neskazar itxura artzen doazan sasi-bikotea.

* * *

Laster ikastaro barria asiko da. Or, egun gitxi barru, zure seme-alaba edo illobatxoa alai ta jostari, autobusaren zain. Mitxeleta argira lez doaz ikasketara, ta zeuk be orrebesteko zarala bialtzen dozuz. Aztertu ete dozu iñoiz zelakoa dan argi ori?

* * *

Bi eratako ikastolak daukaguz: Euskera erakusten dabenak eta euskerantoa asebeten darabillenak. Lenengoak euskerearen on ez obearen billa diardue bigarren asmorik gabe, besteok «hirahultza» dabe mugarri, ta ziñeteza, txakur-maitakeria, jaiotza-ukatze, ez kontza-auste...

* * *

Orretan igarri ta bereiztu daikezu. Baita, areik euskerea eurena ez eze asabagandik datorkigun edertasuna dala-ta, ondo irakatsi, sendo eutsi ta erreztasunez apaintzen alegintzen diralako; besteok, mordoilloz ta kindu, «h»ez gaiztotu, ta asabarik ez ba'lerkee-edo, euskerea bera baztertu ta «futuruko generaziñoak estatuak elevaukoetsezkoan-edo» euskeranto propioa asmatu dabelako.

* * *

Ta orra orain zeu bitartean. Nora betatzen dozuz zure txiki bigun orreik, Amu euskeraren magalera ala ardi-narrudun otsoaren erpeetara?

PIPER-ZIR

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

ERRIKO SASI-MAITALEAK

Batzuen ustez. Erri bat maitatzea oso erreza da. Baiña nik ez nuke ori esango. Eta gure Euskal Erria'n be ori jazoten jaku, batez ere gazteakaz.

Gaurko euskal gaztediarentzat, zer da Erria maitatzea?... Tamalgarria benetan, baiña gure gaztediari sarritan jazoten jakona esan bearrezkoa da: Lertxundi'ren diskoak euki; Euskal Hit Parade zelan doian jakin; Urtain'en ukabilkadak txalotu; Athletiktarra izan... eta noizean beiñ euskal izparringi bat erosi.

Eta gauza orrek egin ezkero, maitasunaren zorra ordaindu dutela uste dabe. Baiña olako gazte bateri, galdera batzuk egingo nizkioke: Arazo oietan neurtzen al da egizko euskaltasuna?... Or ikusten al dira saioak Erriagaitik?... ez ete dagoz garrantzi aundiagoko gauzak?... maitasuna erreza dala uste dozu?

Ez adizkidea! Erri-maitale izateko gauza asko izan bear dituzu. Arazo oiek txarto dagozala ez dot esaten; baiña ezin ortan gelditu! Ori gitxi da! Gure Euskal Erria'n be gauza batzuk txarto dabiltza, eta or entzun bear dozu zure Erriaren deia.

Euskaltasuna eukitea ez da erreza, zailla baiño. Orretarako ez dabe guztiok balio. Sasi-maitalea izatea oso erreza dek! Dan —dana eginda daukazu. Baiña Erri-maitetasuna ez da erosten; orretarako patrika beteak edo utsak bardiñak dira.

Eta oraiñ ba'dakit galdetuko daustazula: Eta zer egin nezake Erri-maitetasuna erakusteko? Ba erantzuna oso erreza dozu: ZAINDU ZURE ERRIA!

Eta ondo zaintzeko arazo barriak aurkitu bear dozuz. Zabaldu gure izkuntza!, Atera zazu euskera baserrietatik eta ezarri zazu urietan!, Ezazu galdu kutsua!, Gorde egizuz gure oiturak!, Gure Erriaren siñesmena gogortu egizu! Ori bai da egizko maitale izatea! Baietza emon bear dozunean, emon; baiña giro barrietan gure nortasunaren kaltea ikusten ba'dozu, ezetz esan. Sasi-maitaleak, Erriko arpegi bat bakarra ikusten dabe. Arpegi ori irriparrez dago beti, baiña ez beste arpegi guztiak. Eta Erri-maitaleak, ernai egongo dira bai egun zailletan bai egun errezetan (*«A las duras y a las maduras»* esaten diote erdaldunak).

Oraiñ ba'dakizu, euskal gaztea, Lertxundi bakarrik ez!

Zure anaiak, zure izkuntza, gure nortasuna eta gure siñesmena Errikoak dira. Eta ori ezin lezake ukatu. Munduko Erri guztiak, euren gaztedian ezarrita dute itxaropenik aundiena... Eta gure Euskal Erriak be bai! Sasi-maitaleak ez dabe aurrerantza aundirik egingo; baiña bai besteak.

Askotan esaten dogu gazteok, etorkizun zoriontsuago bat lortu bear dogula mundu ontan. Bai, ori gure eskuetan dogu. Baiña nundik asi bear gara?... GAUZA TXIKIETATIK. Lenengo gure sendian, gero adizkideen artean, eta azkenez GURE ERRIAN! Eta olan asten ez ba'gara, ardoa zer dan jakin barik «wodka» edatea bezela izango da. Eta zu, euzko gaztea nun zaude? Sasi-maitaleen taldean ba'zara, zugandik ez dot asko ITXAROTEN. Baiña egizko Erri-maitale ba'zara, jarrai aurrera! Olako gazteak bear ditu mundu onek-ta.

Gazte, nigaz asarratu ba'zara; parkatu egidazu. Baiña emetik egiak esan bear dira eta gure artean gaur jazoten dana, EGI AUNDIA DA.

Eta azkenez-zergaitik ez? —aupa Lertxundi, Urtain, Athletik... eta abar!

EZKAURIATZA'TAR XABIER

EUSKAL HIT PARADE

Oporretara joan ete-gara ba danok? Ez, ez da barri aundirik disko artean, edo bai; bero aldi onetan salketak asko be asko jatxi dirala eta autarkiak be urritu. Ezin bestean, eta aize zuzmur eta uiñen piripilka soiñua be txarra ez dala, igaro dan bigarren iruillabete-koaren barri emongo dautzugu:

1.—Bizi Beti Euzkerea, Zorion Egileor'ena

2.—Zeru Garbia, Estitxu'rena

3.—Nun Da Nekazaria?, Xabier Madi-narena

4.—Bakarrik, Estitxu'rena

Oskarbi'ren «Txori Txikiak», Unai biko-taren «Galdua Naiz», Argoitia'tarren «Alar-guna», Kresala'koen «Gezurra», ta nok esango duan, Luis Mariano'ren «Ezin Aztu» benetan ezin aztua au, beste askorekin gogor dabiltz Parade onetako lenengo mailletan.

Oraiñ, esaten dauskuenez, Zorion'ek beste biribil barri bat dakar laster, ea lengoan aiñakoa dan. Bitartean opor-aldi onak danori!

ASTI'TAR PERNANDA

XATURDITXO ESKOLARA

Errotako seme bakarra da Xaturdi. Lagun aundiak gara biok.

Erreka txikiaren zubipean dago Errotatxo. An aurkitzen dot Xaturdi, erreka ondoko bidetik ziar joaten nazen bakoitzean.

An ibilten da olgetan. Burdiñazko txirringola txikiagaz eta plastikozko popot gorriagaz batzuetan. Andapara kontrako orman pelotan, beste batzuetan.

Sei urte egin dauz bagillian, eta eskolara joan bear dau laster, datorren iraillean asten da ikastaroa-ta.

Euskaldun osoak dira etxekoak, amazarra batez be.

Ez daki erderarik Xaturditxok. Ez ta tutik be.

Orain etorriko dira etortekoak. Erriko maixu maistrak ez dakijee euskerarik.

Erdaldun utsak dira biak.

Xaturditxo gixajoa! Zer adituko ete-dau lenengoko ikastaroan?!

Buruz ikasi bai, ikasiko ditu gauzak, baiña aditu... zer adituko ete-dau ikasigaietan?

Urte obeagoak etorriko jakuz, diñoenez.

Baiña bitartean, betikoa euskal ume askorentzako: euskerarik bapere ez dakijeen irakasleak gure errijetan, erderarik ez dakijeen umetxoentzako.

ÑAPUR ZARRA

NUNDIK NORAKOA

— IX —

Baiña biotzak dio...

Eusko-lurretik ain ur bizi ta nai ta ez argandiko lurruna barne-muiñetaraiño sartu bear, azkenean. Euskotartasunak artua ta euskalduntasunak ere bidea egin eban denporagarrenean. Gure arteko ikasle batek, egiegia, sorgin-ipuiñak eta siñesten ebazan: Dima' ko Petralanda bera. Trumoiak eta ziranean, aren larri-ikarak, inguruko atxetatik sorgiñak zelatan eta kaltetan egongo ete ziran... Baiña ez. Maitagarriak edo; ain eder-zoragarri ta errai-bero zan gure Euskalerria, begizkoa barik, neri beintzat, biotzekoa egin eustana.

Ekarri eben Begoña'ko Andra Mari erririk erri Bizkaian zear. Orduko jendetza irakiña gitxitan ikusi izan da gure eleiz-barrutian.

Arteaga'ra **ere** etorri zan eta...

Apaizgai-etxeko eleizatxoan abestiak, euskerazkoak jakiña, ikasten saiatu giñan luzaroan. Orduan ziran gure lenengo ikasketak euskal-arloan. «Bizkai'ko seme-leialak»... eta abar, nork ez gogoratu biotz-zirraraz! Egun batzuk lenago piñuak-eta ebagi ebezan inguruko mendietan, errian uztaiak eta apaingarriak gertatzeko. Ta gu bialdu ginduezan mendi-tontorreraiño zugatz eta adarren billa. Mutiko gogorrak, bizkorrak eta gogo-gauzetarako bigunak orduan. Igon ta igon eldu giñan gure taldekoak agindutako lekuraiño. Ta zugatzak batu ondoren berantza narraz ekarteko izerdia prest. Alaz ere entzun lenago, gure mendietako maitagarria zelan agertu yatan neri eguratsean zear, belarrira ixil-mixil gauza andiak esaten. Batera ta bestera ibilli, an-emengo bazterrak arakatu ondoan, galdu egin giñan, etxerako bidea aurkitu ezinda. Antxe lotu bear luzaro, zelai orlegietan, olgetan, jauzika ta alaitasunez, gidari bat noiz agertuko zai. Alako betean alboko baserrietako mutiko bat, geure adiñekoa gitxi gorabera, ondoratu yekun ikusguraz edo jakinguraz. Guk, orduan, bidea nundik zan itaunka erderaz jakiña, besterik ez genkian-eta. Ta arek, ostera, euskera baiño ez ekian eta guri ulertu ez, erantzunik emon eziñik. Axe zan gure arrimena! Mutikoak giñan eta, saltoka, parrezka ta alkarri begira emon genduan aldi zati on bat. Noizean bein itz batzuk eta len baizen arrotz alkarrekiko.

Ez dakit ondo azaltzen orduko nere biotzeragiña. Mendi laiñotsuz inguratuta, ikuspegi ederrak aurre-aurrean, baso itzaltsuak baranoan, Izadiaren beroa arnas artzen eta biotza utsik itxi bear! Orduantxe ikusi neban mundu bat, azalekoa baiño azkotaz ederragoa, alajaiña. Eta etxetik kilometro batzuetara bakarrik! Nere ordurarteko lagun zintzoen, egitien eta egokienen izketa ulertu ez, biozketak bateratu ezin eta... neure bizitza guztian senti dodan neure buruagazko asarre ta lotsa andienarekin antxe geldi, murtik ere esan gabe... Ixiltasun aretan, zorionez, maitagarri edo sorgin onurakor edo aingeru jagoleren batek (nere lagunak deabrua ete zan diñoe) biotz-biotzera itz egin eustan. Edo txinpart gori bat jaurti eustan, edo... Neure kautan zin egin neban ez nintzala ilgo nere Ama Lurra'ren izketa ikasi barik, nere Ama Lurra' ren erraietaraiño murgildu gabe... nere Ama Lurra'ren alde odolaren indar guztia emon artean.

Orduak aurrera eta gure ikaskide euskaldun bat bideratu yakun. Aretxek galdetu eutson umeari nundik zan bidea ta asi giñan piñuak tatarrez genkarzala gure kabirantza...

Orduko itzaldiak, eleiz-barrukoak eta kalekoak ez dira emen laburrean azaltzekoak. Orduko jendearen emana ezin liteke itz bitan adierazo. Orduko eleiz ta euskal-kutsua larregizkoa da iñori urrundik azaldu nai izateko. Eta nere euskera gero ta aziago nere erraietan. Zeberio'n itzalezko Agur Erregiña abestu geutson Andra Maria'ri eleizan. A zan ostetza! Andra-gizonak, neska-mutillak, abade ta osterantzekoak! Ta eleiz andi aretan Agur Erregiña, baserritarrak bikainki ta ederki abestua. Arrezkero dar-dar maitati bat daroat barruan, durundi maitekor bat belarrietan, izar negartibakarti ta dizditsu bat begi-aurrean, iñoiz atzematen ez dodana ta iñoiz ostentzen ez yatana... Arrezkero, izar aren atzetik nabilkizu gau ta egun, argi ta laiño, poz eta negar, il eta bizi. Arrezkero izar bat dot gidari, besteak ez bezelakoa. Arrezkero, ara ta ona, gora ta bera, jausi ta jagi, izar a atzeman artean ez dot bakerik. Ta nai ere ez. Ba-dakit egunen batean, Jainko-altzoan a izarra ta au erri au nereak izango dirala betiko. Ta ni izar eta erriarena. Bitartean, negar-erri ontatik entzungo al dau Goikoak Amaren bidez gure intziria: «zuri deiez gagoz, emen ez dogu nork jaramonik egin-eta».

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

LAISTERKA

Benetan, soiñu ura, oso urrutitik zetorren. Belarrientzat jostaillu bat bezela zen soiñu ura; Leguna, ixilla, karraxirik gabekoa; urrutian oso urrutian.

Emen, enparantza onetan, emakumeak aur kontuan, kontuak kontatzen dituzte; exerita, puntua egiten, denbora pasa. Beren inguruan, aurrak jolasean dabiltz, parrez edo negarrez, ixilik edo oiuka. Aldamenean exeri-lekuak, an bat, or inguruan beste bat, emen bi. Usoak ere, pasiatzen zebiltzan. Zugaitzik berriz, ez zen ikusten, alare, parkea deitzen diote leku oni.

Soiñua gero ta aundiagoa entzuten zan, belarriari min egiteko moduan.

Enparantzaren aldamenean dagon karrika, utsa arkitzen zan, eta delako soiñu ori bertatik zetorren.

Eliza bat dago enparantza eta karrikaren inguruan, bere kanpaiak bost aldiz jo zuten. Arratsalde bat zan, arratsaldeko bostak.

Une artan bertantxe gertatu zan.

Berebil batetik irtentzen zen soiñu ura, orain ezin esanekoa zen bere karraxia. Kaletik irten da, eta laisterka bizian exeri-leku bat jo du eta moskor antzera, balantzaka, iltzeko egarriakin aur bi il eta andre bat eri utzi ditu.

Usoak egoak astinduz zeru aldera iges egin zuten, era beran, berebilla eleizako paretan aurka gelditu da, bere atzean autsa eta negarra utzirik.

Kasu au bost milla bider gertatu da, eta gauzak dijoazten bezela ikusirik, normalegia ote den ere iruditzen ari zaigu, gertakizun abek.

Emen komentario geiagorik egitea ez zait bearrezkoa iruditzen.

RAMON ZAPIRAIN

KONTU KONTARI

ASARRATU NAI TA...

EZIN ASARRATU!

Andrakumeak dauan indarratzaz, bat, bi, iru ta lau baño geiago jardun izan dira jardunetan.

Gizonik aldrebezena, otso dirudiana, senera ekarri ta arkume biurtzeko almena ei dauko emakume batek. Alderantzira, gizonik apal eta zuzenena, okertu ta gaiztotu be, errez egiten ei dau.

Gure Kerolima ez zan bigarrenetarikoa, lenengoetarikoa baño: Apala, zintzoa ta maitalea.

Kerman trastorekin ezkondu jatzun. Au, lenbiziko ezkon-aroan, gizon xamar jokatzen zan, baña laster asi jatzun bide okerrak artzen.

Lagunak be, bera lakoxe biurriak eukozan ta... esan oi dan lez, «auntza larrera» egiten asi zan: Zurrut geiegi, kanpo-apari, ta... lotaratzeak beranduegi.

—Bart, berandutxo eldu ziñan etxera, laztana —esan eutson goiz batez, maiteki, Kerolima'k, senarrari.

—Lagun taldea batu giñan eta... orduak igarri barik joan jakuzan.

—Beno, ez da oker andia. Egun batez, ordu batek edo bestek irrizt egiten dautzula? Ez da ori larritzeko; gizonok bear dozue noizik bein nasai-alditxo bat. Baña... enetxoa, egun askotxo daroazuz zeure senetik urten da! Zatoz maitea goiztxoago, ta zure emaztetxoari kezkak kendu ta zure osasunari ongarria ezarriko dautsozu.

—Tiiira ba! gaur goiztxoago etorriko naz.

«Esana bat, egiña bi». Egun artako illuntzean be, Kerman, bere lagunekin batu zan eta... «auntza barriz be larrera». Egia esateko, etxerantz egin nai izan eban garaiz, baña adiskideak bereala asi jakozan zirika esanaz: «Emaztea, asi jak iri be ustaia ezarten eta galdu aiz. Joan adi gizona, joan adi etxera —esan eutsen destañez—, eta egon adi andrearen gonapean sartuta!»

Kerman, bere burua gizonago egitearrenedo, lagunekin lotu zan zurrutean.

Zurrut eta zurrut, geroago ta biziago joiazan, ta gañean ziran San Permiñetarako asmoak biribiltzen asi.

—San Permiñetan, bizpairu egun igaroten, Iruña'ra joan bear joagu esan eban batek.

—Bai —erantzun eben beste batzuk—. Naparroako uri nausi ori, oso begikoa dok egun batzuk alaitsu egiteko ta... joan egin bear gaituk!

Kerman'ek gañeztu eban:

—Nok azaldu gure emazteari asmo ori? Gaur goizean be zerbait aitatu jostak etxeratzeko orduetzaz.

—Asarratzeko atxaki bat asmau egik gizona, egun batzuetarako!

—Gure emaztearekin ez jagok asarratzerik mutil. Arkumea baño otsanagoa dok. Koipea baño bigunago. Iñoiz esan jostak, neuk nai ta be, bera ez dala asarratuko egundo. Ta gañera... arrasoi barik asarratzea ez deritxoat ondo.

—Laga bear dozak emekeriak¡ Neuk emongo dauat asarratzeko bide polita.

—Zer bide?

—Biar goizean mutur astunarekin urten egik etxetik, eta eguerdian bazkaitara joaten azanean, bazkari osoa gaiztetsi eta despresiatu egiok.

Gauza bat ataratzen ba'daua, ik beste bat eskatu, beste bat nai dauala esan. Gazi edo gaza dagola, ta abar. Ortik, muturrak sortuko dituk eta mutur orrein itzalpean, San Permiñak bapo egingo joaguz Iruñe aldean, praka zuriak jantziz, zapiño gorria idunean ipiniz eta zezenen aurrean lasterka ibilliz.

Urrengo goizean, Kerman, emazteari «egunon» esan gabe ta ez agurrik egin gabe atera zan etxetik.

Emazteak antz-eman eutson, zerbaiten billa ebillala, ta bere neurriak artu zitun.

Eguerdian, Kerman, joan zan bazkaitara. Apur bat buru-makur eta beste apur bat kopet-illun, jarri zan mai-ertzean.

—Bazkaria gertu al dogu? —galdetu eutson emazteari garratz samar.

—Bai, senartxoa —bazkaria gertu dogu.

Atara eban bereala, saldea.

—Salda onek ez dauka gatzik!

—Ez asarratu orregaitik, Kerman! Or daukozu gatz-ontzia ta jarri egizu zeure abo-zapaiaren grasian.

Saldearekin ez egoan asarratzerik.

Salda zurruztau ebaneko, lapikokua atara eutson.

—Oneik babarrunak! Ez urdai ta ez saieski! Ez ur ta ez salda!

—Ez asarratu, Kerman! Saieski, urdai ta lukainkarekin jarriak be ba'ditut beste lapiko baten.

Atara eutsozan. Jan ebazan.

Ondoren arrautz-opila atara eutson.

—Zorioneko tortillea¡ —oiu egin eban Kerman'ek besoak gora jasota—. Goizean tortillea! Ogi bitarterako, tortillea! Bazkaitarako, tortillea! ta apaitarako be, tortillea! Ainbeste tortillarekin, Txinoak baño oriago jarri bear nozu!

—Ez asarratu orregaitik, Kerman —erantzun eutsan apalki ta maiteki, Kerolima'k—. Arrautzarik nai ez ba'dozu, ez jan. Okela gozoa, okela samurra be ba'dot, eta auxe jango dozu, txekorraren okela biguna!

—Nik ez dot nai okelarik¡ Errekontxo!

—Zer nai dozu ba?

—KK!

—Or daukozu ba, ori be! —esan eutson Kerolima'k azpil baten ganean buruz-bera egoan katillu bat jasoaz, ta... ondora biribilla ta puntara zorrotza zan erregaloa azalduaz.

Eta Kerman, Iruña'ko jaietara joan zan; ez baña bere lagun trastoekin, bere emazte jatorrarekin baiño.

ABELETXE



TXORI BATEN GOGOETAK

(Jarraipena) **Agiñalde'tik**

Edaria amaitutakoan, berandu da yadanik, eta mutxurdiña urrats makalaz oera doa. Emen baiñan atseden ez dan ameskaitz beteriko lokuma batean murgiltzen da, goizabarreko besoetan itzarri arte.

Neure Matxalen gaixoa...! Zure bizitzak onela dirau... ameskaitz utsa... Nik ba-dakit baiñan zerbait zure barruan austen asi yatzula. Gaualdi sakonenean amestxar oneitan sartuta zaranean, txori erituak kaiolean egazka espetxeko esiak yoten dituan bezelaxe, zure biotza zoro biurtu bai'litzakizun yauzika dabilkizu ler egiteko zorian.

Matxalen gaixoa...! Nork diño baiñan gaixoa zaranik? Iñarratza'ko lore zimeldu ta bakartia, zu ez zara ezelan bere gaixotzat artu izan bear... ez, zure bidai luze ta mingarria amaitzeko zorian da, ta zuk ez yakin arren, bideko biurgune batean argi yaukal bat ditxarokizu.

Bai Matxalen, bular-barruan daukazun txori zauritua, zure biotz nekatu ta oiñazetua, azkenetan dago, ta usterik gitxienean, kaiolaren esi-aurkako egakatze zoro batean beiñere ez yagiteko amilduko yatzu, ta bide-mugan zure igurikan dozun argi yaukalak bizitz eta itxaropenezko besarkada emongo dautzu. Norberaren bizitza urkoaren alde emoten dauenak, bereak betiko irabazten dau, ta zuk unez-une, egunik-egun, Iñarratza'ko kimak bizi eitezan, aurrean zetzakizun etorki dizdiratsuko bizitzari uko egiñik, itzaletako ta aldaz izugarriko bidetxigorra aukeratu zenduan.

Ez bildur izan, Matxalen. Argi betean aurkituko dozun batek ez dau okerrik egingo. Edateari bultzatu zinduzan aulkeria, zure irabazkunen aurrean ez da aintzakotzat arturik izango. Agiñalde'ko etxekoyaunak esan dauenez, zure aurka ari izan diran atsoak, bizitzean zear zuk itzitako oiñatzak mun egiteko be ez dira gai. Asko maite izan dozu ta aunitz artuko dozu. Bide-mugan Mirentxu kutuna zure begira dozu, ta iñoizkorik besarkada maitekorrena emongo dautzu, ta arrezkero ez dozu iñoiz barriz bere zure biotzeko kutuna galduko.

AGIÑALDE'KO TXEPETXA

ALKAR-IZKETAN VII

EUSKERAREN IRAUPENA DALA-TA

Manu, lengoan Euskeraren etorkizuna zala-ta, izan giñoan alkar-izketan! ain «baikor» ikustean pozik gelditu nintsoan baiña, «Zeruko Argia»'n «Izazpi»'n bertso batzuk irakurrita «nire poza pozura» yausi zoan.

—Zer yiñoan ba?

—Ba, labur, labur auxe: beribil edo automobilla erosi ta baztertu egin bear izan yoala, txoper-karneta ezin lortu yoalako.

—Zegatik ez?

—Entzuyok berari: —«Kotxe eder bat erosi nuan ta zorionez beterik, urrea balitz bezela antxe mandioan det gordeta Orain iñolaz ezin atera zorioneko karneta ta komeriak izango ditut erderaz ez dakit eta».

—Txoper izateko erderaz yakin bear dok ala? Ori baltza izango litzakek!

—Ori baiño baltzagoa dok aurreko bertso baten diñokana: «Zazpi biaje egiñak ditut «suspenso» eramatera, neure burua bota bearko leiza zuloen batera»!

—Bizitzan ori baiño eroapen geyago bear dok, baiña, bakik, ori esate alde esango yoan, eta bertsolaria dok eta parkatu egin bear...

—Bai, bertsolariari bai, parkatu leikiok, baiña ori esan eragin yautsoanari parkatzea ez dot ain errez.

—Beintzat bertsolaria ez dok errudun berak diñoanez: «Erdel itzeri esanai utsa, kasi ez diet ulertzen nere buruan sartzeko ez da xistemarikan agertzen. Dana memoriz ikasi bear —burua ez bazait lertzen— baiña galdezka asitakoan —ez diet tutik ulertzen.

—Orretan zuzen ago. Izkuntza biak ikasita yayo ezpazoan, ze erru izango yok ba?

—Alan yiñok berak be: «Ez-ezagun dedan izkuntzan, injenieru danak mintz, izketan asten diran orduko ezin ulertu ainbat itz. Nere esku ta barren guztiak ikara baten dabiltz, bildur geyago ezin eraman, gerrara yoango banintz!»

—Errukarri orrek ez yoan igaro estutasun makala! Baiña yakin ezik!

—Ez zoan izan ezyakitearren. Ikusik zer diñoan: «—Naiz ta señale danak eraman— buruz ongi ikasita, an aldatuta aurkitzen ditut, paperak leitzen asita. Nik euskerara ezin biurtu, naiz ta burua ausita, au da mixeri zelebrezkoa, Euskalerrian bizita!»

—Nik oker ori laster zuzenduko ñeukek.

—Ez dok bururik ausi bearrik. Berak yiñok garbi: «Beraz zegatik ez gera asten —nagusi daudenengandik...? injeniru euskaldunikan, ez al da egin oraindik?»

—Ederto esana, geure errian erbesteko izatea lotsagarri dok izan be ta. Dana dok gaur ainbeste aitatzen diran «gizonaren eskubideak» aintzat ez artzeen.

—Ba egiñ-egiñean be orixe dok aurrerapide guztien oiñarri. Ori barik aurrerapide guztiak azalekoak dozak eta gaiñera barriketa utsa... Gizonaren onerako egiñak diran gauzak aintzat artzea zertako dok gizona bera aintzat artu ezik?... Zeozer geyago esango be esango ñeukek, baiña au luze yoak eta urrengorako itxi bearko yoguk.

—Alan egin bearko yoguk eta agur urrengorarte.

—Agur, eta ekin Euskeraren alde!

URIGOITIA

ITXAS-ONTZI TXIKITARREI

I

Ontzi txikiko arrantzaliak
izan dute negu txarra,
euren kalatan beseu ta lebatz
arrapatu ez bearra;
naigabetuten egonak ziran
ordaindu eziñaz zorra,
esaten gendun Jainkoa zala
beartsuen errukiorra.

II

Ala, erruki Jainko'k agertu
uda barriko sasoian,
beseu ta lebatz poli-politxo
arrapatuaz tokian;
garai ontako irebaziak
zorra kendu dau danian,
ezkerrak gogoz Jaungoiko'ari
otoitzarekin tartian.

AZPEITIA'TAR GOTZON

KIROLAK



ARRAUNKETAK

Arraunketako Bisutsak

Urteko estropadak eldu dira. Lenen treiñerilla oiek erriko laietan asten dira. Igande batean, batean; eta bestean, bestean. Estropa txalupa oietan, ligilla deitzen diogun oietan, sei arraunlarik eta patroiak arraunean egiten dute. Pasai'tik bi txalupa, Zumai'tik beste bi, Pasai San Pedro'tik beste bi, «Goxoki» taldea, «Ondar-Ur» eta... Getarriarrak.

Igazko urtean getariarrak irugarren gelditu ziran. Oso jokaera ona egin zuten. Getariarrak, Zarautz'ko uretan lenen etorri ziran irabaziaz bertako udaletxeekoak ematen duten Bandera.

Estropada auek, batzutan ibaietan jokatzen dituzte, bestetan itxas zabalean. Itxas zabalean aukera obeagoa izanik, ortan dago treiñeru baten yayotasuna. Zer esanik ez bertako arraunlarienak ere.

Besoak

Getariarrak, aspaldiko urteetan, gogoratzen naiz oraindik irabazi zituzten bizpairu estropada. Ba-dira Getari'ko udaletxean banderak. Azkenez ikusi nituanean, izango dira ia berrogei urte, bata, Bilbo'ko txuri-gorri ta aundia. Bestea Prantzi'ko txuri-gorri-urdiña (au Endaya'n irabazia) eta beste bat-edo-beste, emen Doností'n irabazitakoak.

Ain gaztea nitzanez, ez det gogorapenik nola eldu ziran Getari'ra. Dakitena da, balkoian ikusten nituala erriko pesta guzitan.

Gogoratzen naiz geroago, urte baten, ez naiz ziur zein urte zan, ogetaka urteak noski, egundoko estropada egin zuela, oriotarrakin neurtuaz bi txalupak alkar berdin elduaz. Arrezkeroz, urteak dira ez dutela arraunean egin getariarrak... baiñan, orratiokan, treiñeru txikiakin bakarrik asi ziran, ta orra nun irabazi duten Zarautz'en bandera!

Naiz-ta egun ortan irabazi, oraindik ligilla orrek aurrera jarraitzen du. San Pedrotarrak dirala lenen orain artean oien 37 puntokin, bigarren getariarrak daude 34'kin.

Izparringiak diotenez, 1934'ko urtean azkenengo bandera irabazi zutela. Bai, egia izango da, ori diotenak nik baiñon obetoago dakielako. Urte ortakoa naiz ta nik ogei urte izan, egia esateko, zearo astuta nago.

Gaiñian ditugu baita urteko estropadak Kontxa'n. Saiaketa auetara ez dira getariarrak etortzen. Sei arraunlari sortzen ez da ain zailla, baiñan amaikakoa eziña daukate. Kontu egin bear deguna da, une oietan bertako arraintzaleak atunetan izaten dirala. Ala ere, gaur egunetan basarritarrak ere izaten dirala arraunlari, Getari'k, ikusten degunez, ez dauka olako erreztasunik.

Ez dute getariarrak beste kaietako kontu ateratzerik. Oiek, beste oiek esan nai det, beren alkarteak oso ongi ornituak dauzkatelako, baita dirutzak eta laguntzailleak. Gentari'k ez du ori, ta olako garrantzidun jokaketak alkarte aberatsak izan bear ditu eta ez txiroak, Getari'koa bezela...

Motorrak

Itxas arraintzak irabazi geiago ematen duanez, arraintzaleak jaramon gutxi egiten dio arraunketari. Nun dira gure gazte denporetako arraintzak, arraunean joaten giñanak? Gure eskuak ederki kailluz beteak, ta gaur esku piñagokin arraintzan egingo dute. Ortako bai dauzkate ontzi aundi, apain ta ederrak!

Idazlan au agertzeko dagonillaren azkena edo geiago izango da. Beraz, Donosti'ko kontxan urtero bezela ikusiko ditugu treiñeru taldeak. Igaz, ORIO izan zan jaun da jabe. Aurten ere, kontuz, nere ustez, berak irabaziko dutelakoan nago. Oriotarrari, txapela kendu bearren izango gera, zein da alakoa ustegaberen bat agertzen ez ba'da. Igazko oriotarren arraunketak ikusita, besterik ez det nik nabaitzen. Oiek ortakoak izan dira, ta izango dira arraun kontuetan. Yayuak bai dira! Yola estropadetan ere ederki erakutsi diote dalako ingelez pamatu aieri.

Aurten, zeintzuk etorriko dira? Oriotarrak, Lasarte, Ondarrabi, bi pasaitarrak... Zumai ta abar. Getariarrak zer? Ez det uste. Zarautz'ko bandera irabazi arren, oiek oraindik ez dira berotuko treiñeru aundiakin onera etortzeko. Ortako sei illabete bear dira antolatzen eta ez orain dauden aste gutxi abek. Datorren urterako, ligilla ontan nola gelditzen diran ikusita gero, orduan pentsatuko dute zer egin.

Beraz, onekin bukatzen det.

E. OZKIN

JAKEA SOIÑEAN DALA...

Ozkin ospetsuak ori idatzita gero, Pasai Don-Iban'en beste ekiñaldi bat izan genduan. Emen Getari'k berriz ere irabazi zun. Ara bertako zerzeladak:

Lenengo ekiñaldian:

Pasai Done-Kepa B . .	15-37-3/5
Zumai B	16-53-3/5
Ondar-Ur	16-03-2/5

Bigarren ekiñaldian:

Goxoki	15-04-3/5
Pasai Done-Iban B . . .	15-13-3/5
Zumai A	15-46-2/5


Ta irugarren ekiñaldean:

Getari	14-31-1/5
Pasai Done-Kepa A . . .	14-33-0/0
Pasai Done-Iban A . .	14-35-2/5

Ta ara nun Getari txapeldun izateko bidean. Azkena Dagonil onen lenengoan jokatu da, baiña... Getari'k iru lagun galdu ditu bitartean. Arraunlari bi ta lemazaiña, beste talde batekin zuten aurretiko betebearrak eraginda. Ta ez da azken joko ori gogoan artzekoa izan.

Urrengoan obeto.

UBITZA



ORRENBESTE INGORRIREN OTSEIN, EZ!

Amaika bidar izango ziñan ordainagiri baten ardurapean, etxean edo, okerrago, iñorenean ordainketea egin bearraren zain! Zeregin orretarako zeure ordezko bat izatea lasaibidea litzaikezu. Orrela, ausiabarrak, leiatilla aurretako zutik egoteak eta diruak oker zenbatzearen arriskuak saiestu daikezuz.

ORDAINKETEN LEKURATZE ori duan erabilliko dozu, gurean kontuidegi bat eukitzeaz beste barik. Bilbao-Banku onek, zure argi-indar, ur, laspel, urrutizkin ta abarren agiriak zure ordez ordaintzeko ardurea artuko dau beregain, baita biltoki, alkarte naiz zerga ta su edo bizi-aroenak bere.


Ta beti, zenbat, noiz eta nori ordaindu jakonaren ezaugarriak izango dozuz.

BANCO DE BILBAO

Onek emakumeen eskubideak onartzen ditu

Aprobado por el Banco de España con el núm. 7924.

URKIXO'ENEKO JULIO



Euskeraren benetako lagunak (ezkerretik asita): Carmelo Etxegaray, Arturo Kanpion, Julio Urkixo, Txomin Agirre, Serapio Muxika ta Juan Carlos Gerra.

Euskalerria'ren jatorria ez-ezaguna dalako, askotan, egoera parragarri batera iritxi ziran euskal-yakintza-gayak mende onen aiseran. Eta gizonak bururatu ditzazken añeko asmakeri ta zorakeririk aundienak esatera eldu izan ziran «jakintsu» asko. Kontu egin, gure izkuntza danetan zarrena dala aldezteko, paradisuan ere mintzatu izan zala benetan xinisten eta esaten zutenak ere ba-ziran-ta...

Oñarririk gabeko uste uts ayek naspilla aundia ekarri zuten, eta euskal-yakintza-gayak zirala-ta, edonor prest zegoen buru-gabekeririk aundienak esateko. Egoera negargarri orrek sendagai bat bear-bearrezkoa zuen; gure yakintza naskeri batean murgildurik zegoen, eta erabide edo orden egoki baten bearra nai-ta-nayezkoa zeukan. Eta erabide egoki ori ekarri zion gizona, URKIXO'ENEKO JULIO izan zan.

Urkixo burubide aundikoa izanik, euskal gayetaz arduratzen asi zan bezin laster, zearo txunditua gelditu zan gure yakintzaren joera ikusi zuenean; eta joera orreri esia jarri arte ez zuen pakerik izan bere baitan. Eta ala, bere biziko neke, sayatze ta diru-xautze arrigarriak egin ondoren, euskal-yakintza-gayak zientzi-arauetan sartzia lortu zuen.

Ortarako Urkixo'k egin zuen lanik garrantzitsuena RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) izeneko aldizkaria sortzia izan zan. Aldizkari orreri Urkixo'k eman zion benetasuna berealaxe nagusitu zan, eta Europa'ko izkuntzalari ta erri-yakintza-zalerik ospatsuenak erakarri zituen bere orrialde mamitsuetara, euskal jakintsuenekin batera. Atzerriko idazle oyek gogotsu asi ziran gure yakintza-gayak ikasten, sakontzen eta ayen berri zabaltzen. Eta alaxe, RIEV aldizkariak eskeintzen zuen benetasunezko ekintza ortara Euskalerri'tik kanpoko gizon aipagarri ugari urbildu ziran: Hugo Schuchardt, Edward Spencer Dodgson, George Herelle, Victor Stempf, Henri Gavel, Christianus Cornelius Uhlenbeck eta abar; eta euskaldunen artean, R. M. Azkue, Telesforo Arantzadi, Arturo Campion. Luis Elizalde, Juan Jaurgain, George Lacombe, beste idazle mordo aundiarekin batera. Idazle ospetsu oyek izen aundia eman zioten aldizkariari, euren lanak lau izkuntzetan agertuaz.

Ez zan arritzeko gauza euskal eta atzerriko jakintsu sail aundi ori erakarri al izan zuela jakitia, Urkixo'ren jokabideak uste on eta osoa zabaldu bai zuen asieratik, RIEV'en azaldu bear zuen lan guztiai baldintza nagusi bat ezarriaz: au da, zientzi-arauetan oñarritua izatia; eta bestelako idazlan guztiak, kupirik gabe, zokoratu egiten zituen.

Urkixo'k RIEV'en egin zuen lanik txalogarriena auxe izan zan: aspaldiko euskal liburuak —euskeraz idatziak, alegia,— bertan argitaratzia. Antziñako liburu on asko agortu-ta zeudelarik, berriro argitaratziarekin mesederik aundienetako bat egin zion gure izkuntzari. Gañera, liburu zar oyek lendabiziko aldiz azaldu ziran bezela agertzen zituen batere aldakuntzarik gabe, —ezta ortografian ere— orrela argitaratziarekin euskeraren iturburuak nolakoak ziran ikasteko aukera bikaña emanaz. Ona emen era ortan azaldu zituen liburu-zerrendaren zati bat:

«LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE». Bernat Dechepare'na; euskeraz idatzitako lenengo liburua.

«GVERO». «Axular»en liburu ospetsua: «facsimile» argitalpena.

«POESIAS Y PROVERBIOS». Arnaut Oihenart'ena.

«ONSA HILCECO BIDIA». Juan de Tartas'ena. Zubero'tarrez idatzitako lenengo liburua.

«REFRANES Y SENTENCIAS DE 1596». Euskerazko esaera zarren lenengo bilduma.

«REFRANES VASCOS DE SAUGUIS». Zubero'tar zaldunaren atsotitzak, len iñoiz argitaratu gabeak.

«GUEROCO GUERO». «Axular»ek idatzitako «Gvero»ren itzulpena, Pedro Antonio Añibarro apaizak Bizkaieraz egiña.

«FABULAS». Juan Mateo de Zabala aitarenak.

Zerrenda ortan ongi agiri dan lez, oso maitemindua zegoen euskal atsotitz edo esaera zarrekin. Alik geyenak biltzen sayatu zan eta, zatika —Garibay' renekin asi-ta— sail ederrak sartu zituen RIEV'en. Bere bilduma oyek berriro argitaratuak izan dira «Auñamendi» sallean, «Refranero Vasco» izenburuarekin.

Euskal liburu zarren aldeko begirune berezia izan zuen, bañan oso begiko zituen bere garayan idazten ziran lan berriak ere. Eta orrela ikusten dugu, Txomiñ Agirre apaizaren «Garoa»k RIEV'en izan zuela bere lenengo argitaratzia.

Ain garrantzi aundiko aldizkari au Bayona'n asi zan azaltzen, George Lacombe idazkari zala; ale bat Alemania'n ere agertu zan, eta gero Donosti'n, 1918'tik 1936 arte. 1922'an, Sociedad de Estudios Vascos'en eskuetara aldatu zan, bañan beti Urkixo bera izan zan aldizkariaren zuzendari. Orain, «La Gran Enciclopedia Vasca» ber-argitaratzen ari da RIEV'en sail osoa.

Urkixo ta Ibarra'eneko Julio Deusto'n jayo zan, 1871'ko Jorrailla'ren 3'an. Aundizkitakoa zan bere sendia ta karlisten arteko aintzindarietakoa. Bere ikasketak Deusto'ko Ikastetxe Nagusian egin zituen, eta lege-ikasketak Salamanca'n amaitu.

Urkixo'ren irakasleetako bat Julio Cejador ospetsua izan zan, bañan gerora, ez zuten ongi elkar artzen biak, irakasle ta ikasleak euskal gayetaz zituzten iritziak ez bai zijoazten bide berdiñetan: Cejador'en usteak oso ariñak ziran eta Urkixo'nak, berriz, oso zurrak.

1894'an, Donibane Loitzun'en, Olazabal'dar Bizenta'rekin ezkondu ta erri artan bizi izan zan 1918'a arte. Orduan Donosti'ra etorri ta bertan egin zuen bere bizibidea, 1950'ean il zan bitarte.

RIEV aldizkariko zuzendari izan zan arek iraun zuen denbora guztian, eta ortaz gañera, bere idazlanetan eten gabe ari izan zan, irizketak ugari azalduaz eta sayo bereziak egiñaz. Bein, Menendez y Pelayo'k bere «Heterodoxos» izeneko idazlanean, Azkoiti'ko Zalduntxoak «volteriano» edo antzeko kutsuaz jota zeudela adierazi zuelako, «Un Juicio Sujeto a Revisión» izenburua dun idazlana argitaratu zuen (1925'ean, Donosti'n), gure Zalduntxo ospetsuak biotz eta buruz aldeztuaz.

1918'an, Euskaltzindia sortu zanean, euskaltzain izendatua izan zan. Eta 1927'an. Azkue'kin batera, Españi'ko «académico numerario» egin zuten ango erri-izkuntza sallean.

Euskaldun berria zan Urkixo eta, dirudinez, Azkue ta Aita Arana'ren adiskidetasunean jayo zitzayon gure izkuntzaganako zaletasuna. Ez zan euskal idazle izatera iritxi.

Benetako kristaua zan eta xinixmen gartsukoa. Bere ayeka orregatik estu ta larri ibilli bearra izan zuen 1936'an, guda asi zanean. Bere anai Jose Maria, ordea, fusilatua izan zan.

Bere bizitzan bi zaletasun nagusi izan zituen: erriketa edo politika ta euskal liburu zarrak eskuratzeko gogoa. Bere erriketa zaletasunak ez zion, noski, geyegi erakartzen, naiz ta 1902'an aldun izatera iritxi Tolosa'ko ballararen izenenan, Madrid'eko Aldundegian.

Beraz, bere bizitzako kutizirik aundiena, zalantzik gabe, euskal bibliofiloa izatea zan; gure liburu zarrak biltzeko ixira zuen. Eta irrika ori, esan oi danez, Jules Vinson'en «Essai d'une Bibliographie Basque» ikusi ondoren sortu zitzayon, ordurarte argitaratutako euskal liburu guztiak bereganatzeko gogo bizia bat-batean piztuaz.

Liburu billakatze ortan, arrigarrizko arkitzeak egin zituen. Adibidez, Conde de Peñaflorida (Francisco Xabier de Munibe)'ren «El Borracho Burlado» (2 peztan erosia); Beriain eta Arzadun'en bi Kristau Ikasbideak; Joannes d'Etcheberri, Sara'tar sendagillearen lanak (esku-idatziak ere bai), Zarautz'ko Franzisko'tarren etxean.

Urkixo bera oso diruduna izanik, ez zan iñoiz zeken agertzen gure liburu zar baten aurrean, bestera baizik. Ara, egun batez, Axular'en «Gvero» eskuratzeko aukera etorri zitzayonean, eta altxor ori bereganatzeko eman bear zuen diru-saria aundiskoa izan arren, ez zan ikaratu. Eta alaxe, Axular'en liburu orren jabe egiteko, Jose Manterola'ren liburutegi osoa erosi bear izan zuen, bere 2.000 (bi milla) liburuekin batera.

Orrela, bada, baserriz-baserri ta etxerik-etxe euskal liburuen billa leyaz ibilli ondoren, iñork pentsatu ez zezakean alako liburutegi bikaña bildu al izan zuen bere eskuetan, dana idazlan bitxiz eta liburu bakanez ornitua.

Ain baliotsua dan liburutegi ori, azkenik, erriaren eskuetan ipiñia izan zan, Urkixo il zanean, bada, 1.400.000 (milloi bat eta lareun milla) peztan erosi egin bai zuen Gipuzkoa'ko Aldundia'k, arrezkero euskal-yakintza zale dan guztiari erreztasuna emanaz, liburutegi osoa edozeñen aukeran jarriaz.

Urkixo'ren liburutegi orrentzat, iya 7.000 (zazpi milla) izenburu edo titulo ditun idazti sail orrentzat toki bat bear zan, eta Gipuzkoa'ko Diputazioa'k bere etxean bertan jaso zuen; ain zuzen, lengo liburutegi zarrean. Toki aproposa, iñun aproposik ba'zan. Lekua guztiz egokia, neurriz bezela, tankeraz ere; apal eta arasak kaoba fiñ eta apañez egiñak. Txukuntasunaren erdian, giro berezi ta etxekoya, euskal yakintzaren otoitz-lekua dirudila. Irakurle, ez al zera iñoiz bertan izan? Ez baldin ba'duzu ezagutzen gure literaturaren jauregi-bazter ori, zoaz leyaz eta ikusi ezazu astirik galdu gabe; ziñetan diozut, zirarra gozo batez ikutua izango dala zure biotza. Ortarako, aski duzu Artetxe jaunari eskatzia, eta berak —beti oi dun bezela— gogorik onenarekin eramango zaitu bertara.

Liburutegi orrek «Fondo Urquijo» izena darama, ta bertako liburuen fitxa salla Aldundi'ko liburutegi nagusian arkitzen da. Orrela, ezaugarri ta xetasunak emanaz, edozein liburu eskuratu ondoren, bertan irakurri ta aztertu dezakegu. Aurrerantzian ori maiz egiten ba'dugu, Urkixo'ren eun-urteburu ontan, ze omenaldi oberik eskeñi dezayokegu?

OÑATIBIA'TAR YON


KOLONBIA'TIK OLERKIAK

Abrisketa adizkidearen eskutik «Esparavel» Kolonbia'ko Kali'n agertzen dan olerki-aldizkaria jaso dogu, gure Aita Santi'ren «Olerti» aztu ezin aren antzekoa. Bertan, gure beste orretan lez, olerkia da nagusi, lengoa ta gaurkoa. Or aurkitzen dira ba Manuela Saenz'ek ainbeste maite izan eban Bolibar berari emen eriotza ondoren eskeñiak:

Una víbora cruel quiso materme
introduciendo en mí su atroz veneno
yo no pensé morir, pero al salvarme
sólo pensé en un bien, que en todo es bueno...

ta Julio Flórez soneto eder bat, ta Eduardo Carranza'k egiten dautsan goralpen polita, ta Simón Darío Ramirez'en Venezuela'ko olerkiak, ta Tomás Ramos Orea edo Rodrigo E. Sepúlveda'renak, baiña lenengo orrian norena uste dozue: Muniategi'tar Sabin'ek Helcias Martán Gongora'ren «Mayo Interior»i egin dautsan itzulpena euskeraz:

Araoa neurtitz, otoi-eresi
txori-aldra, ibaiarte zait biurtzen...
Nun dago malko ori
ain uste onez nik emana orri
ixillari? Itza, zein
urrutiko aberrian aldatzen
zillar ta urregorri?



Olerki onek sei aapaldi ditu ta seirak dakarts euskeraz, Muniategi jaunak itzulita, Ara zati bat:

Entre todos los árboles, esa palmera mía
la que sembró mi padre una mañana
y la puso a cantar cerca del agua
para lección del pájaro y la brisa...

Zugaitz guztien artean nire palmondo ori,
nire aitak goiz berezi eder batean erein
eta abestutzen urondoan maiteki iarri
aize ta txorientzat eredu, ikasbide bikain...

ta gero, etsaiak-edo erre eben zugatza ta etxea:

Gaur nirea da bai, sugarrak bere asarrean,
utzi zidan eskukadatxo baten autserrea,
ezereztutako etxearen alderdi berean...

1971'gngo Orrillean agertu zan «Esparavel» aldizkaritik batua.

AIXOLA

BAKE-ZALE, NORTZUK?

BAKE-ZALE, NORTZUK?

Itz ederrak agotan erabiltea naikoa ba'litz, aldirik onenean bizi gareala esango geunke. Egunoro ta era guztietara itz eder oneik entzungo doguz: bakea, batasuna, zuzenbatasuna, alkar-izketa, azkatasuna ta abar. Gaur eguneko zoritxarrik andiena, auxe da: itz eder orreik esan gura daben mamiña alde batera itxi ta azal, oskol utsa-gaz gelditzea. Gaurkoz bake **itza bakarrik ikusi daigun.** Bakea **zer dan itanduten ba' dozu, batak erriak agiñetaraiño izkilluz ornidu ta alkarren bildurrez gudan ez astea dala esango dautzu, besteak arerioak azpiratu ta zirkiñik egiten ez itxitea, lapurrak, barriz, ostu dabenagaz bakean biziten itxiteko eskatuko leuke. Nor bereagaz urtenda gero guztiak «bakezale».**

Eta alan da be gauza bakanak ikusten dira: guztiak bake gura ta bakerik ezin egin. Eta euren «bakezaletasuna» egitez erakusteko batzar bat egiten dabenean be, gauza barregarriak ikusten dira: Ara bat. Vietnam'go gudea zala-ta, Paris'en alderdi bietakoak batu ziranean, aste osoak igaro zituezan, mai borobil ala lauertzekoaren inguruan batzarrak egingo ete ebezan erabagiteko. Borobilla izan ezkero maipuruko danak dira-ta... Gizonen umekeriak, besterik ez.

EGIZKO BAKEA

Egizko bakea zer dan igartea azaltzea baiño errezago da. Bakea, gauza bakotxa bere tokian zaintzetik sortzen da. Gauzea bere izatez dagokion tokitik ataraten danean, azur bat bere tokitik aterata lez, bakea galtzen da. Ori dala-ta bakeak oiñarritzat egia euki bear dau, guzurra bakearen arariorik andiena da-ta. Orregaz batera doa, izate bakotxaren eskubideak aintzat artu ta dagokiona emotea, ori zuzentasunak eskatzen dau-ta; zuzentasun barik ba ez dago bakerik, asarre ta alkar-ikusi eziña baiño. Orrez gaiñera bakeak maitasuna eskatzen dau, eta maitasunak biotzak batu egiten ditu eta batasun onetatik bakebizia **sortzen da. Orregaitik indarkeriak bakeagaz ez dau zer ikusirik, arerioriik andiena dau-ta.**

Azkenez, gizonak bere egiteetzaz erantzun bear dabelako azkatasuna bear dau, ori barik gizatasuna galduko leuke-ta.

XXIII Yon'ek itz gitxitan guzti au azaldu eban: «Bakeak oiñarritzat egia euki bear dau, zuzentasunez iragi bear da, maitasun bidez biztu ta osotu, ta azkatasunez egiztu» **(Pacem in Terris AG 2).**

GAMA

ONA

ta

RAM

EZNEAK

ZUK

ONARTZEKOAK

DITUZU

IDAZTI BARRIAK

Izena: Loyola'ko Iñigo.

Egillea: ARRIZABALAGA'tar K. M.

Argitaratzaillea: Caracas'ko Iñaki Deunaren Ikastetxeko «ikasle zarrak».

Irarlea: «Itxaropena» Unzurrunzaga'tar F. Bitor Pradera 2.—Zarautz.

Doiñuak: Odriozola'tar Luis, Massana'tar Antonio ereskidetzaille dala.

Irudigillea: Zumalabe'tar Iñigo.

Urtea: 1970.

Antzerkitxu bat etorri jaku esku-artera. Eta ez da au egunoro jazoten dan gauzea. Gu euskaldunok ez dot uste antzerkiak egiten ain zaleak garanik. Ospetsuak doguz gure egunetan Larzabal, Labayen, Uxola ta abar, oso ugariak lan onetan.

Zinea agertu zanetik antzerkiak garrantzia galdu eban. Ez, orregaitiño, berez garrantzi gitxiago daualako. Antzerkia ziñea baiño ederragoa da, onurakorragoa da, biziagoa da. Baiña antzerkiak gizonari lan geiago eragiten dautso, eziketarako indartsuagoa da; agertze bakotxa gertatu bear dan ezkero, garestiagoa be bai. Orregaitik ziñeak azpiratu dau.

Baiña euskerearen alde lan egin gura ba' dogu, ziñetik eta telebiziñotik ez uste izan laguntasun asko etorriko jakunik. Bai, ostera, antzerkitik: erritxuetan, ikastoletan gaztetaldeetan... errez agertzeko erako antzerkiak bear doguz. Eta zergaitik ez erriko jaietan be, egunen baten beintzan, antzerki bat agertu? Erriarentzat oso ezigarri izan leiteke.

* * *

«Loyola'ko Iñigo' antzerkiak ez dauka sakontasun aundirik. Bear ba'da gure Ignazio santuaren bizitzeak guretzako daukazan gauzarik jakingarrienak agertu be ez dira egiten: Iruña'ko gudaldia ta Euskalerria, Ignazio'ren jokerea aztertuaz; Xabier'en euskalzaletasuna ta Ignazio'rena; Ignazio'ren erlejiñoaren alderdi onak eta ain onak ez diranak; gogojardunen aztertzea; ta abar... Zauri bizi-bizi asko dagoz emen aztertu ta osatu bearrekoak.

* * *

Atal bat, lau zati eta itz-ostea ditu antzerkiak.

Lenengo zatian lagunak agertzen dira, Iñigo bera ez. Iñigo izenez sarri aitatzen da eta bera ikusteko gogoa bizkortzen da. Barregarri batzuk be ba ditu, batez be ezkontza arazoa.

Iruña'ko gudea be emen agertzen da, baiña errezago agertzeko labur-laburrean edestua, Iñigo'ri itxaroten dagozan artean.

Bigarren zatian, asieratik, Iñigo agertzen da oe aundi baten zaurituta. Lenengo liburuen jazoerea: «Goitik bera inguru guziak aztertu dizkiat eta an ez zeok alako Gaula'ko Amadis ori». Gero, beste jazoera batzuk igaro ondoren, Iñigoren biurtzea, bakar-izketa luze baten bidez agertzen da: «Alajaiña! Pranzizko Santuak ori egin dikela? Nik ere egin nezakek... Domingo Doneak egindakoa ere nik egin nezakek...»

Irugarren zatian Iñigo osatu-antzean agertzen da aurki baten jezarrita. Bere anai Martiñ'egaz alkar-izketa gogorrean egertzen da Iñigo arek eskontza-naste antzeko bat egin daualako. Antzerkian agertzen dan jazoerarik gogorrena eta ondoen egiña izan leiteke auxe berau.

Itz-ostean Iñigo ta Xabier agertzen jakuz, a jezarrita, au zutunik. Indietara urtetea erabagiten dabe, baiña amaitu barik lez geratzen da une onetan antzerkia.

* * *

Ezin amaitu aztertze au egilleak darabillen euskera ederra ta gozoa goratu barik. Gipuzkoerea da, baiña bizkaitarrentzat be oso argia ta ederra. Ika-jokoa, bai gizonentzakoa baita andrentzakoa, askatasun osoz darabil egilleak, eta joko au galduaz doala ikusirik, benetan goratu bearrekoa da pitxi eder au.

Antzerki onek ba ditu abestiak be, baiña onetan aditua ez nazan ezkero, ez noa aztertzerik egiten.

Antzerki-lagunen izaerea sakontasun geiagoz eta biziago agertu bear zala uste dot. Baiña gizarte giro batzuetarako eta urtearen egun batzuetarako oso egokia da antzerki au. Gure antzerkilanai indar apur bat emoteko izango al da.

OLAZAR'TAR MARTIÑ'EK

ANTZERKIA BARRUNDIK

(El Teatro por Dentro)

GAZTELERAZ

Idazlea : **Isidoro de Fagoaga**

Itzaurrea : **Roberto F. Giusti (Argentina'ko Akademikoa)**

Argitaldaria: **LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA**

Naiz erderaz idatzia izan, idazleak euskal sena baldin ba'du liburu orretara dijoaz gure jakin naiak. Eta Fagoaga'k euskal napar sena ba-du.

Liburu onetan gauza zaarretaz naiz mintza, gauz barri asko ematen dizkigu, batezere antzerkietan murgildurik gabiltzan guztiontzat. Bertan, antzez-idazleak bezenbat, antzerkigille, apuntadore ta zuzendariak jakingarri asko gureganatu genezazke.

Fagoaga, euskal abeslari bezela ludi guztian bere abotsaren ederra zabaltzen joan izan zaneko gertakizun ezkutuetako anitz azaltzen dizkigu.

Guk antzokiaren aurreko arpegia bakarrik ikusten dugu. Eta ez dakigu askorik, oial-aien atzetik zeintzu naaspil, azpi-joko, zailtasun, garaitz eta potto egiteaz.

Fagoaga'k bere luma dantzariarekin, alaiarekin, oial atzekoz dabillen mundu ezkutu on erakusten digu. Zenbat biurrikeri! Zenbat amets ezereztuak! Zenbat ikasbide an-emengo idazleen iritzi parez aztertuak!

Bai. Fagoaga'k idazti egoki bat egiña du gauza atsegiñak irakurtzen zaletuak diranentzat, eta antzerkia maite dutenentzat. Baiñan, nere ustez, txit ernagarria zaigu euskal antzerkian barrundik gabiltzanontzat, gerala idazle, antzerkigille, zuzendari edo laguntzaille.

Euskal antzerkia ondu nai onetan bai-bai-dugu aski gauz ikasteko. Asmo onetaz dabillenak arkituko du bertan zer ikasi. Zerbait ikastea beti da on.

OLAZABAL

SAMANIEGO

Otsaundiko fabulista onen izena, nork ez du entzun bederik egin? Ludi guztian barna bere ipuiak edatu dira, eta iñoiz ere aitatu izandu dut.

Samaniego txit lotua dago Tolosa'ko kondairara, Onegatik, berriz ere beraretzat jardun bearrean izango gera, txit interesgarria, eta zoritxarrez ia ezezagunak bai dira tolosar eta euskal askoentzat, jaun onek gure erriaz izandu zituan lokarriak. Arestian, joan diran asteetan entzun badiot entzun Zabala'tar Fede tolosar legegizon ta ixtorigilleari Samaniego'tzaz itzegiten, entzundakotik zerbait irakurlei ematea ongarri iduritu zait.

Asterako, oinkada batzuek atzeraka egin ditzagun «Caballeritos de Azkoitia» ziranen egunetara. Orduko gure aberatsen seme geienak erbestera joan oi ziran beren ikasketara, Salamanca'ra, Inglaterra'ra ere, baiñan bereziki Frantzi'ra. Auetan ikasi eta beren ikasia eskeiñi nai izandu ziguten. Euskalerri'rako ain ongarri izango zan «Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais», asmatu ziguten. Eta bazkun onen babesean «Bergara'ko Seminarioa».

Orduko ia zientzia geienak berarekin ekarri zizkiguten, ta irakatsi. Asmakizunak egin zizkiguten, baiñan idazki au luzeegi ez egitearren aitatu dezagun, soilki, Ulayar jaun batek emen ezagutu aal izan zuala ludian ain interesgarria izan dan wolfram meatzkia.

Zientziaz batetsu idea berriak ere erakarri zizkiguten. Berritzealdia zekarkiguten. Onegatik, geienbat, gizon auek eta beroien babesean bildu ziranak guztiz maxiatuak izandu ziran, geiegikeriak masonerian eta siñis-etsaiak izandu zirala ere bai zalatu. Inkisizioak, zalaketen indarrez beren auzipean eduki izandu zituan oietako jaun batzuek. Samaniego eduki zuten arabera.

Samaniego'k iru probintziekin, Gipuzko, Bizkai eta Araba'rekin odol eta bestelako lotuerak izan zituan. Ba-zirudian beren bazkunaren ikurra, «Irurak-Bat» ura osatzeko jaioa izan zala.

Feliz Maria Samaniego eta Zabala zituan izen-abizenak. Araba'ko Laguardia errian jaio zan ludira 1.745 garren urtean. Gurasoen jatorriak: aita arabarra; ama, tolosarra, Zabala'tarretakoa. Emaztetzat, berriz, Doña Manuela Salzedo, bizkaitarra, artu zuan.

«Caballeritos de Azkoitia» alkarteko buru izan zan Conde de Peñafloridaren (aur: Munibe ta Idiakez'tar Xabier M.ª) illoba zan. Bere lenengo eziketa bere osabaren etxean izan zuan, ain zuzen Azkoiti'an. Jakintz-oiñarriak ongi sendoturik zeuzkalarik Baiona'ra bidali zuan osabak. Artu-emanak ba-zituan-ta emengo Gotzaiaren begirapean ipiñi zuan, eta Humanidadeak eta abar ikasi.

Auek ikasi bezin laister, agian aurretik ere, «Amigos del Pais» eko jaunekin lotua dakusgu osabaren bidetik barna. Auetako batzuek bezela, siñisgabea zala-edo zalatu ere izan.

Alako batean Inkisizioak auzitan ipiñi zuan. Eta, alaxen, epai baten ondoren, kondenatua izan zan. Antxen, Bilbo'n, Karmeldarrak «El Desierto» izenek daukaten konbentuan bere zigorraldia jazan bear izandu zuan.

Gure jaioterrian, Tolosa onetan, alkate ere egondu zan. Orduan alkatetzak eta aginteak, urtebeteko luzapena oi zuten emen, ta alaxen egondu zan.

Bilbo'n ere, geroxeago noski, agintari ere egona zan. Emen preboste edo izan zan.

Baiñan iñundikpait, geldirik egotekoa ez zan, eta urrena berriz Madrid'en ikusiko dugu Araba'ko Ordezkari bezela. Iru urte luzeetan Castilla'ko Erregetzarekin eta batean burrukan, gure eskubide edo fueroen alde, gure azkatasuna eten nai zuten bakoitzean euskalmutil biurturik.

Maite zuan baiñan Tolosa, eta ia bere bizitzaren urte geientzuenak emen igaro zituan. Nola ez bere amarengandik jatorrizko-ondore bezela, jabe egin bai zan Tolosa'n ain ezagunak ditugun Yurreamendi (orain Errukietxea dagoana) eta Idiakez (kasinoa deritzaten jauregiak!

Orduko gure ibai-errekak garbiago zijoaztelarik, zenbat lan eder ez ote zituan egin, Idiakez jauregitik Oria ibaiaren ur urdiñei begira! Ez dakigu ziur, baiñan ez litzake arritzeko izango ludi guztian ospe ta izen eman zioten ipui edo fabulak Tolosa'n egitea.

Tolosarrak eta tolosar egin diranak txoko berezi bat izandu dute gure erriaren. Seme asko eman ditu jakintzarako gure jaioterriak. Eta beste asko, gure erriarekutsuaz landareak eman dituztenak. Oetatik, adibidez, euskal jakintzarako Lizardi bat, eta Orixek: Samaniegorenak erderaz dakusgu. Baiñan persekuzioa ta guzti ludi zabalera edatu zuan bere jakinduria eta trebetasuna.

Edozein dugula au egiten duana, pozgarri da gizon ongi ezi batentzat, Eta guretzat tolosar geran aldetik, bi bider pozgarri tolosar odola zeramalako eta emen bizi izandu zalako. Euskeraz zeredozer egin ote zuan ez dakigu, baiñan bai Bergara'ko Seminariotik eusko jakintzaren alde jokatu zuala.

Eziketa onaren ezaugarri da ongillei oore egitea.

UXOLA

EUSKEREAREN EZKUTUAK

IKASBIDE EGOKIENA

Euskera-ikasketan aurrera ba'zoaz, edo zeure izkerea ta idazkerea sendotu ta edertu nai ba'dozuz, **La Gran Enciclopedia Vasca'k** argitaldutako urrengo idaztiok bear-beharrezkoak dituzu. Orreik ondo aztertzean eta ikasiaz, Euskera eskuratu dozula esan daikezu:

AZKUE'REN IZTEGI NAGUSIA.—Euskera-gaztelera-parantzera. 1905'gn egin zan argitalpena ber-bera barriz, ale bitan. Ta beste milla itz geiago, Azkue berak arrezkero batuak. Itzak, nungoak diran eta zelan erabilten ziran, agertzen dituala.

EUSKAL ABESTIEN BILDUMA.—Cancionero Popular Vasco. Azkue jaunarena au be. Ale bi. Euskal abestien itzak eta doiñuak; danetarikoak: eleiz, eztai, maitasuna, biotz-min, dantza, aurtzaro, barregarri ta edatailleenak...

PERU ABARKA.—Mogel aundiak itzi euskun irakurgai, iztegi, edesti, lanbide, oitura, jazkera ta euskal-izakeraren zeaztesunak, danok batera, erraz ta sakon aztertzeko aiñakoa. Ale bat.

ITXASTAR IZTEGIA.—Garmendia'tar I'ren lan aipagarria. Ale bat. Arraintzale, itxas-gizon, ontzi-gille, ta idazle-izparlariak aztertuko dabena; baita euskerea ondo ikasi nai dabenak be.

EUSKAL ITZEN-EITE, edo morfolokia. Iru aletan. Azkue ta Altuna'ren lan zoragarria. Au dogu euskera txukuntzeko eragin-gaillu onena ta bakarra; au barik ez dozu iñoiz jakingo ondo ala oker zabiltzanik.

Eskatu **«La Gran Enciclopedia Vasca»ra,** Apartado n.º 1510. — BILBAO

Mark, zuri

Gizontasuna bizitza ontan
gizonentzako egoki,
baiña lora au ez da aurkitzen
gizartean ain ugari,
oso bakanak dira bizitzan
gizon gizon ta leiñargi,
aunditasun au zuretzako da
lagun Mark Goirigolzarri.

* * *

Argitasuna bearrezko da
bizitzako bide ontan,
odei zakarrak inguru dabiltz
ondatu nairik sarritan,
gizon zur, piñak ba-dira baiña
euskal-erriko soloan,
askoren arte bakanena zu,
Goirigolzarri egitan.

* * *

Bearrik barik ezin da bizi
gizontsua, berez, dana,
bearrak bear egiten ditu
aurreratzeko sendia,
bizitza oro eskeintzen dozu
egunetik egunera,
indarrak urtuz, sendia aurrera
gizon piñaren gisara.

* * *

Gurutz-bideak diran tokian
bizi indarra zauritu zan,
ondoren negar-malko biziak
agertuten gizartean,
erruki billa dabil geroztik
gizona bakardadean,
erruki ori, bizi, biztuten
zure barrengo muiñean.

* * *

Zarata utsak ez dauka ezer
egite bage bizitzan,
egia agertu nai ba'da gaurkoz,
jorratu bide onetan,
laguntasuna bear danean,
zure barrua irakitan,
maitasunezko egi ori da
Mark'en bizi egizkoan.

* * *

Biziak, berez, eskatzen gogor,
burruka oste bakea,
nekeak neke bizia austurik,
eskari zuzenezkoa,
gizon zintzoak opaldu zitun
bere indar ta bizitzea,
geroz, itxaron, Mark adiskide
neke guztien saria.

MALAX

EUSKAL - ERRITIK BEGIRA

Garbi ikusten zan, ez zala erreza izango ingelesen europar izateko gogo-onik aurkitzea. Obeto bizi izango dirala orrek ez ba'leu indarrik, emon eben onezkero ezetza. Baiña... diru asko dabil tartean-eta, sartuko dira. Eskumarrak agintzen dirala, aurrera. Lenago bere esan gendun: igelesak joko berezi bat erabilli dabe beti, batzuk jaso agintzara ta lege barriak egiten itzi, gero besteak aukeratu, ta arein legeekin agindu bearrean ipiñi. Eskumarren legeegaz ezkerrak agindu, ta oneik euren legeak gertatzen dabezenarako besteak aukeratu, ta urrengo beste aldera. Orain be, bardin egingo dabela ziñestu bear. Conservadore orreigaz Europa'ra, baiña gero Laboristak jarri agintzen ta zuzendu dagiezala europarregaz ondo erabagi ez diran auziak.

* * *

Dagonil onen 2'gnean ia Kennedy lendakariaren ingi guztiak agertu dira erriaren aurrean. Iru milloe orrialde danera, ezebez! Euren artean onelakoak irakurten ei-dira: Mr. Douglas'ek orduan esaten eban au; «Izutu zan a (Kennedy) CIA'k eta Pentagonoak eben indarra jakitean, erriaren gaiñean jarrita euken indar a». Ta onenbestekoakin jarraitzen eban: «Ta uste dot orrek illuntasun bat sortu ebala aren buruan. Al izango ete-dau USA'ko lendakariak eta naiko indar izan batzorde indartsu bi orreik bideratzeko?» Astirik ez eutsen emon...

* * *

Suenens Kardenalak, Erroma'ko baimenagaz beste eleizen arteko batzar batera joanda, auxe esan dautse ta esan dausku: Oben larria eta eredu-gaiztoa dala kistar danon jokabidea, Kisto'ren eleiza zatitzean lenengo, ta zatituta jarraitzean oindiño. Danok ei-gara obenlari negargarriak gai onetan.

* * *

Ez dira baiña izpar guztiak orren okerrak. Galestarrak euren jai aundietan dabiltz: Eisteddfod orreitan. An biltzen dira aste osoan Bangor uriaren inguruetan, eta Welsh jakintza ta nortasuna gora-gora ekarten alegindu.

* * *



Davies olerkari saritua

Aurten ta olerki jaian, ta bigarrenez atan bere, Bryan Davies, 38 urtedun olerkaria izan da sariatua. Beste bik bakarrik irabazi al izan eben sari ori birritan, onek lez. Amabi olerki eroan dauz, ta amabiak onenentzat daukez.

* * *

Ez dira makalak galestarrok, ara euren berebilletan darabillen esakera bat: Gorde garbi Wales, bota zuen satsa Inglaterran.

* * *

Ta J. E. Caerwyn irakasleak, lendakari zala jaietan, olakotxeak esan eutsezan: «Eriotzaren ikutua dabil gure lurralde onen gaiñetik, ta gazteak bear dan eran erantzuten asiak dira —bizi naiaren indarrez itz egiten eta egikizunak betetan».

* * *

Baita: «Gazteak uste dabe zarrak welsh-izatean bizi-gurea galdu dabela». Ta galdetzen dau: «Egia ete? Erantzun barik beste au diño: «Orrein sena onuragarria dogu ta zuzena».

* * *

Ta amaitzeko auxe eskatzen dautsa bere erriari: «Ekin gazteak; zarrak, euren bizi-jakintzakin lagundu ta zuzendu, ta danok alkartu».

* * *

Minduta agertzen jaku baiña beste oneik esan ebazanean; Nola leiteke irakasleak welsh'a erakustera lotzea, laster galduko dala ziñisten ba dabe? Nola erakutsi aurrari olerkia ta idazertia, urrengo bako izkutza baten? Nola erakutsi gure edestia, edesti ori amaitzera ba'doa bertan?»

* * *

Baiña, ez da ori bere azken itza, ekiñaldia eskatzen dautse, aurrak gerorako welsh erri eta gizarte baten bizi izateko eskubide osoak dabezelako.

BEGI-BI

Ondartzak

Uda-aroan itxas-ertzetan gauza iguingarriak ikusten dirala ezin ukatu. Onen errua baiña ez dau udeak. Gizon-emakumeak dira errudun. Argi esan bear da: udak eta beroak ez dabe errurik. Beraz ez da esan bear: «bero da; jantziak zerbait arindu egin bearko dira». Bero dala-ta jantziak arindutea zergaiti bat da; billoiztutzea atxaki bat.

Danok aituten dogu itxasora ezin joan daitekela jantzi osoakin; aize ta eguzkiaren beroak onura aundia damotso gorputzari; au dala-ta ez dogu gaiztetsiko itxasoan bustialdi bat egitea; baiña bustialdi atxakiagaz aragia ikustera edo erakustera joatea bai. Au txartzat daukagu; au gaiztetsi egin bear.

Seme batek itxaso ikustera eroan eban bere ama zarra. Ume bat lez pozarren joian ainbeste ta ainbeste goraldu eutsoen itxasoa ikusi bear ebala-ta. Ondartzara eldu zanean, emakumeak erdi-billoizik, jende-taldea ikustean atzeruntz egin eban eta aitarenka asi zan. Au askotxu da... egia da... baiña ba-dau bai bere zera.

Itxas-bazterrak ustelkeria darioe. Gure Euskalerrikoak be bai.

Itxaso: ederra zara. Ederra giza-begientzat, baiña iguingarriak egin ditu gizonak zure bazterrak.


GOIRIA

ITZ-EUNDUAK

(XIV)

Etxebarria'tar Juan Anjel

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Zenbakia.—B: Gizen-leuna.—D: Debekatu.—E: Zoro biurtu; Bokal.—G: Bedi; Leku orretan (a. a.); Bizkai ko mendia.—I: Pistia; Zatiak egin.—J: Saltoki; Taket txikia.—K: Uri; Idien dei-otsa; Dira (Erronkari'n).—L: Bokal; Bizkai'ko mendia.—M: Lugiñen tresna bat.—N: Ezo gabea.—O: Asperen-Itza.

GOITIK BERA.—1: Izkiak.—2: Ogia busti.—3: Lore-mueta.—4: Jaki gozoa; konsonante.—5: Su-miia; Zomorro (a. a.); Gauza dana.—6: Soin-enborraren atala; Bizkai'ko erria.—7: Ito eragin; Abereen soin-atala.—8: Ikara larria; Ukapena; Bigarrenez.—9: Bokal; Bizkai'ko erria.—10: Aize mueta bat.—11: Jatena.—12: Lokarri-itza.

XIII'aren agerpenak:

Zearretara = O1.—Apar.—Alakoz.—ataraZ A.—akE; Or; Are.—Lauro; Gorua.—Irato; Urolo.—Iru; Oa; Abi.—A; Arrabi.—Lupiña. Loti.—Au.

Goitik bera = lI.—Aari.—akuarA.—Atertu; L.—Ala; Oo; Aul.—Oparo; Orpoa.—Lakar; Aritu.—roZ; Gu; Añi.—Z; aorabA.—Arrobi. Euli.—Ao.

Boutique

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tendería, 15 eta 16

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

ERRIETAKO BARRIAK

Tolosa

Euskal-Antzerkiak

Udara bero ontan, bost antzerki ta gaiñera denak EUSKERAZ izan ditugu gure Tolosa zarrean. Olako maukarik ez degu ikusi ezta gure guda aurreko denbora zoriontsuetan (batzuentzat!)

Lendabizi, Tolosa'ko «Oargui» taldeak, «Bizia Bizia truk» eskeiñi digu. Bere egillea, Iñaki Begiristain degu. Antzerki ontan, nagusi ta langilleen arteko eztabaidak garbi ta argi azaltzen dira. Betiko leloa, noski, ta nere ustez geiegi ikutua ta ez beti bear dan bezela.

Antzezlariak, batez ere andreak, ondo jokatu dute. Dana dala, antzerki onek ezer berririk ez digu erakutsi.

Gero, Urnieta'ko «Egi-Billa» taldeak (talde jatorra benetan), «Ismael Agar'en Seme» antzeztu du ta oso polito gaiñera, egia esateko. Baiñan nola gaia ontaz orain dala denbora gutxi itz egin genduan «AGUR»en, ez degu geiago ikutuko.

Gure antzeki saioari jarraitzeko, Oñati'ko «Olatz» taldeak minduta utzi gaitu, biotz illun, bere «Gizonak eta ez» antzerkiarekin. Obra garratza, benetan garratza ta sakona, sakonegia Tolosa'ko jendearentzat.

Dena kartzel edo espetxe batean gertatzen da, ta beraz ezin liteke izan oso gauza alaia. Katalanetik, S. Garmendia'k itzulia da.

Txalogarriak dira benetan Oñati'ko gazte trebeak, baiñan guk uste degu bide okerra artu dutela. Gauza bat da berritzea (bear dan bezela, zuzen) ta okertzea beste bat.

Negar egin ondoren... parra egin bear nai ta nai ez, ta gogoz gaiñera «Zaldilaria» antzerki pozgarriarekin. Prantzezetik Estanislao Urruzola tolosar antzezlari ospetsuak euskeratua. Ondo etorria izan dedilla gure lagun zar au, kartzelatik aterata gero.

Antzerki au ikusita gero, askok eta askok geldetzen degu: Egizko amodiorik ba al-dago munduan? Frantzia'n ba-liteke... frantzes koskorrak ain dira andrazaleak! Urretxua'ko «Irimo» talde gazteak, naiko ondo lan egin dute... akatz batzuekin. Ensaio gutxiekin gauza onik ez!

Ta orain, berriz beste gogorkeria... edo gordinkeria. Asteasu'ko «Kukute» taldeak, nazkatuta bezela utzi gaitu «Denak ixildu egiten gera» antzerkiarekin. Taldea oso ona izan arren, orain arte Tolosa'n beintzat ikusi degun onenetakoa, aita zar iltzailleak, ez gaitu bete. (Udararen beroan, Alfonso Sastre' ren ustez, zenbat gaiztakeri ez dira egiten!)

Euskal antzerkian, erriko antzerkian, ez al ditugu emen etxean obra sakon, on, atsegiñak, kanpoko garratzkeriari eutsi gabe?

Dana dala, Euskera'ri, gure antzazlari gazteak, ta gaiñera debalde, ezer irabazi gabe (kritikak bakarrik), *Bizi* berria eman diote, ta orregatikan bakarrik gure txalo ta laguntza osoa merezi dute!

Aupa zuek, Euskal-erri'ko landara berriak, zuzen jokatu beti, gure lege ta oitura zarrak ondo gordeaz, ta datorren urtera arte, Jainkoak nai ba'du ta gu alpertzen ez ba'gera!

Geroak esan beza, Erri bat... DA!

MATXIN LABAYEN

Bakio

Ez dira ez errezak gure erriaren arazoak; etxegintza ganorabakoa, umeentzat baratzik eza, ikaslekurik eza, batzar tokirik eza, eta beste asko.

Baiña premiñarik aundienetakoa osasuna da. Osagilleak diñoenez, emen edaten dogun ura ez da guztiz garbia, ta ori baiño txarragoa, gure umeak ondartzan «derrigor» edaten dabena, errekako ura da, pozoituta datorrena...

Guk bere, kolera edo alako zerbait izango dogu, etxegintzan aberastu diran morroiak, errekeari edo komunetako ureri bear daben urtenbidea, itxasoan, emoten ez ba'dautsee.

Garrazika euskalduntasuna erakusten ibiltea baiño, erriaren eskubideeri itzal-ona izatea garrantzi aundiagokoa da.

Zaragoza inguruan jazo dana, emen jazoten ba'da, nor izango litzake errudun? Iñor ez? Ta eriotzarik ba'lego?

Alkateak, idazkariak ta etxegilleak ba-dakie zer egin bear dan. Egin bedi, negar aldia eldu baiño len!

ERRITAR

Arrasate

IKASTOLA

Askok uste dute nunbait oraingo gauza berri bat dala Ikastolaren garai eder au eta ez da guztiz egia. Orain 38 urte inguru zabaldu zan leendik aurrez Ikastola bat. Bere zuzendariak, geien bat, izan ziran Ugalde'tar Peli aaztu eziñeko euskaltzale sutsua eta Markiegi'tar Joseba apaiz agurgarria, gero, guda garaian illa izan zana. Lenengo tokia Abadetxean izan zuan eta gero aldatu zan Batzokia'k jaso zuan «Gurea» pelotatokira; ortarako gelatxo bat eratu zan bertan. Abadetxea'n egon zan bitartean D. Jose Markiegi'k egiten zuan irakasle geien bat eta orduko giroari jarraituaz etorkizun ikusgarria jarri zan ikasleen artean. Ta Batzoki'ko pelotalekura juan ziranean irakasle eskolatuak artu eben euren gain ziran Etxebarria'tar Jon eta Mendizabal'dar Pantzezka'k. Denpora gutxi izan zuten beren lana aurrera eramateko ba-da guda zital arek birrindu zuen, baiña onderengo onak utzi zituan eta orduko ikasleak tinko jarraitu an artutako bideetatik.

EUSKERA

«Zeruko Argia'n» irakurri ditut idazle zintzoak diran «Basa-jaun» eta «Basarri»'ren idazkiak. Lenengoak idazkia bialdu zuala euskera garbian eta olan agertu zan astekari orretan. Eta nik diñot: bai al-da gipuzkoar edo bizkaitar edo bizkaitar irakurlerik ulertu ezin izan duanik euskera garbi ori? Ez dut uste ba-da zerbait euskeraz irakurtzen duanak samur asko irentziko zuala ain ederto egiñiko lana.

Beste alde berriz «Basarri»'k esaten du iru bider irakurri bear izan zuala idazki bat zerbait atera nai ba'zuan mamiñez eta alan eta ere ez-zala guztiz ulertuta geratu. Ortan arrazoi andia du. Nik ere irakurri neban idazlan bat orain-txe egun asko ez-dala ta ezin neban ezer garbirik atera. Idazki au Gazteiz'tik idatzia zan. Ikusten dana da orlako idazkiak idazten diran bitartean ez-dogula izango batasunik eta ez gitxiago be. Tamala guztiz gertakizun au. Neure zorion biotzkorrena «Basa-jaun» eta «Basarri» idazle iaiuai.

EZBEARRA

Juan zan illean ezbear aundi bat izan zan emengo Santageda'ko geixoen artean. Or Bizkai aldera oiazela emengo berebil batean, eta Muxika inguruan, eusgarri edo «frenoak» apurtu zitzaizkion ta amildegian bera joan zan eta zazpi illak eta ogeikorenbat zaurituta gelditu ziran. Oneik danak osatzeko bidean dagoz. Gaur agertu nai dogu ezbear ori dala ta «Elizatxo» eta Oka auzuzuneko Izagirre' tar Emille'k, erakutsi eban biotz-ona, berak zeuzkan lau izara onenetaikoak puskatu ta zauriak osatzeko asmotan emon. Ederto egiña ama-euskaldun orren egieta. Zure eskuetara eltzen ba'da aldizkari «AGUR» au artu zazu zauritu ziran guztien esker-ona, eta neurea be bai.


LOURDES'ERA

Emengo Pantzeskarrak eratuta, urtero bezela il onen 22-23'an izango da ibildeuna. Uste da oztetza aundia izango dala. Ondo ibilli zoaizten guztiok.

PELOTA-LEKUA

Aurtengo Sanjuan'ak zirala-ta emen izan ziran Loiola Irrati'ko ordezkariak eta alkar-izketa bat euki zuten Pako Arriaran'ekin. Onek bere erantzunetan gogo bizi jardun zan gure erri ontan Pelota-leku egoki baten alde, erritik notin asko urteten dalako albo-erriko pelotalekuetara eta orregaz gaiñera pelotari berriak atera bear dirala len izan ziran bezin onak: Mondragones, Bolinaga, Arrasate'ko ezkerra eta Arriaran anaiak. Orretzaz gaiñera beste pelotari onak betik euki ditu Arrasate'k. Gaur ba-dogu emen pelotaleku polita Iturripe'n baiña goiti estaldua egonagaitik aldemenak zabalik ditu eta gaiñera kaletik urruti egiten da. Orregaz gaiñera toki berriak beste gauza askotarako balioko luke: Aurren Eguna, ta beste Euskal-Jaiak eratzeko bidea eta abar. Ikusi zan Kanta-Berri saioa izan zanean ze oztetza ugaria batu zan. Bi milla notin baiño geiago batu ziran lengo toki zarrean. Orra ba toki zar ori goitik eta aldamenetik estalduaz, ez-litzake asko kostako eta bere etekiñak samur emongo lituke. Jarrai bada Pako zure lan orretan eta uste dut lagunak izango dituzula.

UDALAITZ



Arratia

Belatxikieta.—«AGUR» onek izan dauan oporralditxoan makiña bat jai, urtenaldi, araorra ibilte ta abarrik izan dogu. Gaurko onetan baiña, belaun-giltzatatik makal gabiltzanontzat Gorbea urruti zamar dagolarik Belatxikieta'ra joan nintzan ezkero, bertan izan zan jaiari (Iñaki Deunarena) ikutu-mikutuen batzuk egiteko gogo dot.

Lemona'tik gorako bidean, Elorriaga auzotegian egin neban lenengo itxonaldia. Euskerazko meza izan zan; mezako D. Manuel, eta estutu neban bostekoa Landaitz'ko Iturriotz adizkide zarrarena.

Bigarren egonaldi ta amarretakoa Aramotz'go landan egiten nengoala, an, non agertu zan «AGUR»'en irakurle dan P. Mari artaundar gaztea, ta alkarren lagun izan giñan aurrean geunkazen bidetxiorretan.

Bernagoiti'ko bideetatik, Euba'tik gora, Zornotza ta Lemoa'tik, igorretarrak Garamendi'tik eta artaundarrak atxarteetatik zear, notintza polita alkartu giñan amabietako meza aretan. Eta meza aitatu dodalarik, zelan eta nolan ezkutatu Aita Luis eta Aita Eleuterio'ren itzaldi sakon-sakonak!

Kristo'ren landa mugapetuan oiñak tinko erroturik, iturririk garbieneko urik eta gardenena eskeindu euskuen, lozorroan diranai begiak igurtzi ta itxar-arazoteko ta egarriz bizi garenon asegarritzat.

Ikastolak, ala-olako andereiñoak, Juangoiko'rik gabeko ume-eziketak, gurazo naiz semealabai uko egiteak, sasi-ezkontza ta txakurmaitakeriak astintze ederrik izan eben.

Gogoan izan bada, Belatxikieta'ko pagopeetan entzun genduzan irakatsi gogoangarriak, garratzak eta mingotzak, zoritxarrez. Jaso buruak bein eta betirako, etxean dogun etsai makur satorra azpiratzeko. San Joan'en suak suge, lupu ta mamarro kaltegarriak erretako diran lez, Erriaren egitik biztuko dogun suaren argiak, orain mitolati barri ta gero... mito izateko asmoz lanean ari diran sasi-jauntxoen jakiturizko auntz-bizarrak kizkalduko dauz. Illuna ta azpijana argira ekarriko ditugu.

LANDAJUELA'TAR A.

Mungia

Mungi'ko Manufacturas Electrikas, S. A., deritxon lantegian, aste ontan, langille ta zuzentzaleen artean gora-bera bat izan da. Eta ori dala-ta, astelen arrasti dana eta martitzen goiza amabi ta erdietara arte lotuta egon da lantegi guztia.

Arrazoiak, bear ba'da, batzuntzat eskasak izango dira, baiña beste toki askotan lez «zoritxarrez», emen be, arrazoi asko pillotuta dagoz, bai aundi ta bai txikerragoak, eta danokaz zorroak gaiñez egin bear. Eta oraingoan ez ba'da be diruz pillo aundirik bai ba'da lotsagarrizkoa egin gura izan dabena.

*Igez iraillean, edo aurretik, zuzentzaleak jaso euskuen «valor punto prima» deritxona, eurek orain diñoenez % **6** edo **7** pezeta euren borondatez, langille askok gitxi irabazten urtetan ikusirik.*

*Baita ordu extrak eta beste konpongarri batzuk be iraillean **14**, estaduko baimenez altza bear ziran, baiña orreik ixillean igaro gura izan dira eta aurtengo jorraillean ordaindu ebezan aurtengoak, atzeratuak, igezkoak, itxita.*

Orain, igezko atzeratuak, eskatutzean euren erantzuna oso lotsagarria izan da, orri batzuk emon dabez, bakoitxari berea. Au da euretariko bat:

n.º x
H. extras. **2** a **2,28** = **4,56** *ptas.*
Prima a deducir pagada, por exceso valor punto prima al **6** %:
de **4.739,80** = **284,38** *ptas.*
Saldo a n/favor, **284,38** — **4,56** = **279,82** *ptas.*
(au izan da nere zorra).

Onek artukeran lengo ezbear danen gaiñera, errazoiagaz langilleak berotu egin ziran eta pentsa ta egin: ez da bearrean asten gauza onek konpondu barik, eta alan igaro gendun astelen arrasti guztia, ta ez eban lez iñok bururik makurtu gura, martitzen goizean be bardin igaro gendun, arik eta Sindikato'ko ta Magistratura de trabajo'ko bi etorri arte.

Euretarik lenengo, sindikatokoa etorri zan bere arrazoiak esan, berba onak esan, kontzeju onak emon eta «egin bearra zuek, ikusiko dala ordainduko dan-ta». Baiña langilleak orretara aspertuta dagoz, berba onak entzun eta ostikadea lepoan. Eta eskatu yaken emon dagiela, ordainduko daben bai edo ez, erantzuna artez. Dana ordaindutakoan, asiko dirala bearrean osterantzean eurek nai ebena egiteko.

Eta langilleak ain gogor ikusirik, eta euren arrazoiaren burubakoa, azkenez burua belaunpean sarturik, esan euskuen ordainduko dabela guztia, ta asteko bearrean.

Alan amaitu da.

IBI-ZUBI

Bilbao

BIZKAI KIROLDARI

Sestao'ko Kaiku arraun alkarteak Santander'eko itxas-aldean izan dan traiñeru neurketan uda ontako lenen garaitza lorturik, beste kantauriko traiñeru ospetsuenak, ots, Bizkai'ko Zierbana; Santander'eko Pedreña, Gipuzkoa'ko Orio, Pasajes t'abar, onenetarikoak eurak egiegiaz begiztatuz, duinkiro Dagonilla'ko txapelketeetan eurekaz jokatzeko gerta bearra dauala autor dagi.

Aurtengoa zuen urtea izan daikela! Asi onak ondorio obeak. Jo ta ke bidea idegirik. Aupa Kaiku! esan daigun.

SALBE'KO ZUBIA

Asierak jarrai bear du, beingo baten amaia ikusi al izango ba'du. Salbe'ko Zubiak egunotan jarraipide ori burutzeko asmoz nunbait, ba-darrai alegiñen alegiñez, burni-abe luzengak Nerbion ibai gaiñetik bestalde jartzen, bardin bere zubi-asieran tren-bide gaiñetik ziurtasuna damotsola euspen bereziaz sendoazoten; Bilbao'ko etorkizunaren bide zabal premiñazko au bide batez osoturik.

Ori ta be beste zubi bearrez, Lutxana parean-edo gagozala ezin uka. Ala ta be amaitu bide dogun onegaz poztu bearrean gara, ta gerokoak... usteak uste... gero-ko, itxaropena galdu barik!

AIXERROTA'KO PAELLA TXAPELKETEA

Urtero Azkorri'ko ondartzan, atan be, Paella-txapelketearen erri-arteko laguntaldea izan dogu. Aurten ostera Aixerrota'n izan da. Beti lez notintza gaiñezka ta gozagiro oneneitakoaz benetan ordinua. Portugalete'ko «Alkarrak» ludi-guziko 7'garren bilketa ontan garaille. Kanpotar asko. Guztiz 282 ur-olo zaletasunez arte izan ziranak, ta irabazi eban alkarteak 109 notintzako jana ekarrela bakotxarena amar ogerleko balioduna or-or zala dirauskue.

25 kilo okelakin (oillaskoz ta untxiz geien bat) ur-oloz, orioz, berakatza ta urez beste 8 kiloz ta perrejillez, milla laurleko'ko balioaz osotoro ornidua egiazki. Ori ta be ta garaillen aburuz beti akatz bardin bat urtero dabe. Bizkai janaldi oneik urterik urte bardin samarrak ei-dira. Labur, edo makallaua edo okelaz naiz mariskoz beteriko paelleak soil-soillik aurkeztu oi dira aulako txapelketetan. Besterik ez.

Ez al leiteke gauza berririk asmatu? Tripazaiñeen, jatunen eritxiaren zain gagoz. Datorren urterako bide barririk erri ta kanpotarrentzat idoro bearrez aurki.

ARREGI'TAR JOSU

ERRIETAKO BARRIAK

Zaldibar

Erriko jaiak amaitu dira. Garillaren zortzian asi ta amaikan amaitu. Ba-daukat zer esan erriko gutxaz.

Aurten, nere ustez, jaiak ondo ta polito ipiñita egon dira, ta bai Aiuntamentuak, Eleizeak, Coralak baita Gerediagatarrak, egin dabe euren alegintxoa guiok osotzen. Ainbat espatandatzari talde etorri zirean. Gero Aldekoa'tar Alejandro txistulariari un eder bat emon eutson Coralak.

D. Santiago'k, Zaldibar'ko abadeak, lan sketsu baten ondoren, eun eta berrogetamar neskamutiko alkartu ta erakutsiaz, abesbatz polita sukeratu euskun, ta abots askotara urrengo abesti mak abestu: «Kukuaren abestia». «Zeru ortzian lan argia», «Poztasunaren abestia». «Lai, lai, lai» ta «Agur Jaunak».

Jai guztiok ondo ipiñita egon dira, baiña dan mun gaiñetik gauza bat esatera noia: Norberekeria ta aldekeria itxiteko ordua da. Esan leiteke batzuen jokabidea eurenari bakarrik bultza egitea dala, ta lesteak antolatutakoa azpiratu, ezeztu, naita euskal lotsuduna izan. Artalde txikia sakabanatzen ba'gabiz noraiño elduko gara?

Aztertu dagigun bakoitzaren jokabidea ta bakoitzaren euskalzaletasunaren neurria.

GASTELURRUTIA'TAR M. ASUN

Ibaizabal aldetik

BEDIA

Orain alditxu bat dala aditzen emoten genduan zelan Bedia'ko gaztediak pelota txapelketa bat antolatua eban, erri ontako pelotatoki politean jokatuko zala ta iru maillatan izango zala, au da: amabi urtetik amabosterakoa bata, amabostetik amazortzirakoa bestea ta ortik gora nai ebenena irugarrena.

Txapelketa orretako, iru maillatan ainbat bikote aurkeztu ziran, eta, jokaldiak ikustera be ostetza apaiña batu zan, nai-ta beti eguraldiak lagundu ez batezbere amaierak ikusten, jokaldi kementsuak izan be ziran eurak-eta, orretan be nagusiena «Guerra» ta Lezama'k, Zamakona ta Mintegi'ren aurka jokatu ebena; 22 ta 21'egaitik irabazi eben lenengokoak txapelketea. Beste maillaetan be sutsu jokatu eben eta gazteen artean Uriarte ta Barandika'k lortu ebezan txapelak. Eta gaztetxuen artekoa Atutxa ta Frias mutiltxu bizkorrak. Gure zorionak AGUR'en bitartez txapeldun ta txapelketa bikain ori antolatu daben gazte kementsu orrei, eta, ea laster beste orrelako euzko giroko zerbait gertutzen daben.

GALDAKANO

Azkenengo aldiotan ardagela ta edatexeak udabarrian zizak baiño ugariago sortuaz doiaz erri ontan, ta batez bere egin barri diran txaidectan. Gure ustez larregi, eta arreik gitxi ba'lira askoren buruak zorabiotuteko, orain jai-aretoak ipinten asi yakuz, orain urte bat arte, zorionez, ezdogu euki gaztediaren ondamendi zulorik; toki orreitan gure gaztediaren lizunkeri ta oben azia iruntsiten dabe, batez bere gazteentzat askozaz errezago dalako barren-bako txindi zaleak ipiñi dabezan sare dizdiritsu zikiñetan jaustea, be orreitatik gaizkatzea baiño; bide kilikigarri ta labanak izanik lizunkerizko bide kaltegarriak dira.

Euzko gazteak aldendu zaiteze arren, zeuon abendaren eta gizarte zindoaren etsaiak euren txindi gosea asetuteko igiri dabezan sare maltzurretatik!

ERIOTZAK

Garilla'n 15'gn eroan eban aspaldiz makal xamar euki eben gaixo zatarrak Diaz de Eredia eta Iturrieta'tar Jone, Otxoa'tar Saturnin'en alargun azkar zintzoa irurogei ta amasei urtendun zala. Izatez arabarra zan emakume maitegarri au baiña, aspaldiko urte askoan erri ontan bizi zan, galdakanotar argi zintzoa lez.

Baita il orren 17'gn Jaunak Ayarza'tar Martiñe, Goiri'tar Mikel'en alarguna ta Bittor euskeltzale ta AGUR'en irakurlearen ama kutuna eroan eban larogei ta bat urtedun zala. Goian Begoz andera zintzo orreik eta gure samin maitekorra senidei AGUR'en bitartez.

* * *

Nai-ta oporraldietan izan, esan leike ezdagozala geldirik bertoko eusko ikastolako batzordekoak, ez orixe!; ba-dabiltz inguruetako beste ikastola batzuetako batzordiekaz ar emonean. Ea eskualde ontarako, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakano ta abarrentzat euskal ikastetxe on bat jaso aalizaten dan. Baiña jakiña, oldozpen sakonak eta eginkizun neketsuak daukoz; ez dira danbada baten egin litzakezan lan errezak, eta ezta gitxi batzuk egin leikeazanak be, askoren jarraipenak ta buruausteak dira, euskeltzale guztion laguntzaz egin leikezanak eta egin bear diranak. Ea ba urrengo idazlantxu baten emoten dogun azalpen argiago ta itxaronpetsuagoa; bienbitartean, jarrai aspertu barik, batzordekoai laguntzen.

BASA-JAUN

Basauri

Galduaz doia izatasuna; gaur-egunean kutsu-giro edo aize-nasteaz, itz egitea da dana baita drogak dirala ta beste antzerako itzketa asko, egixak geienak baiña, gitxi batzuk bakarrik dira gaizkin orrein ondorengoakaz oldoztuten eta orreik zuzentzeko zerbait egiten dabenak. Nai-ta era guztietako zabalkunde andiak egin diran orreitaz, ezta iñor be sakonkiro konturatuten noraiñokoa dan kaltegarri ori. Beste aldetik, ortatik jatorkigun arazoa aldendu bearrean aurkitzen diranak, ardura andirik ipinten ez dabela esan leiteke.

Ia aldenduta dago «La Basconia» landolea baiña, ori ta guzti be iruntsiten iraun bearrean gara orrek jaurtitzen daituzan ke loiak bere inguruetan bizi garen guztiok eta batez bere Kareagabekoa auzunekoak landola ortatik urbillen dagozanak.

Etxebarri erri polita be, ekintza ta onein keagaitik ia itoan aurkitzen da. Eta zetan esan bez, «San Miguel» Mikel Deuna'ren alderdi zabalean, beste ain beste jazoten da; alderdi au, Basauri'k euki daben lurralderik aberatsena izan da. Basetxe zabal ederrez ornitua; ain mamintsuak izan dira lur orreik! Errian bear ziran barazki, igali ta eznerik geienak alderdi ortatik urtetan ziran, baiña, orain «Echevarria» landola jabetu da lurralde geien orrekin, ia Arrigorriaga' raiño, ta landola orreik jaurtiten daben ke gorrizka loi orrek ito bearren dauko inguru guztia, ez aldamenekoak bakarrik, bertatik urbil dagozan baserriak be laster suzmeko dabez ke kaltegarri orrein ondorengoak.

Ugazaba gitxi dira, batez bere landola txiki ta lantegietan, osasun bide arauz da laneko ziurtasunak beteten dabezanak; aurrerapenak ba'dira, eztago zalatzarik, baiña, ez dira erabilten, auts, margoki ta ke'an aurka ezta gitxi baiño egiten. Orretaiko zerbait lortuko ba'da, osasun ongarri edo laneko ezbearrak jazo ez daitezan, langilleak beren asarre bidez edo eurok eurotatik egin bear dabez, ugazabak, geien bat, euren aberastasunak ugarituten geiago arduratuten diralako langilleen biziaz baiño.

Erri guztiak jokatu bear dau kutsadura, kontaminaziño, aurka eta, eskarrak orreri Ugao'n errez lortu eben «Fluor» landola erri inguruan ez ipintea, baiña ez zan beste ainbeste jazo danok dakigun Erandio'n, naiz-ta ondo erakutsi eban erri guztiak ziozko aserrea, jazokun tamalgarriakaz amaituaz eurak.

Erri-miñez gogoratuten doguz galduez joan diran alderdi orlegiak, eurak estaldute dabezan bizitza askodun etxemordoak eta lantegi ketsuak ikusten doguzan bitartean! Baita itxaropen andia genduan entzuterarte errian genduan zelaikada eder baten aurrerantzarako, bertan izango zalakoan Basauri'ko gaztedia soiñez eta adimenez sendotuteko tokia izango zalakoan. Jolaseta ta soineziketa toki egoki bat baiña, bertan jarri eben «Mercabilbao» az joan ziran gure amets garbiak.

Jainkoak osasuna emongo dauskuelakoan gara, errian nai gendukezan da bear diran pelotatoki ta igeritegiak ikusteko, Nerbion ibaia ea legortuta eta Ibaizabal loituta daukaguzan ezketiño, bustialdi bat non artu be ez daukagulako. Egunen baten etorriko yaku izurri okerren bat eta Jainkoak gaizkatu bearko gaitu. Eskerrak inguruetako mendi maiteak alaituten gaituela, igande ta jaiegunetan bertan aize garbia artuaz gure Aberriari adi egoten gara.

KOLDO

Zeanuri

Garillaren seian San Blas eguna ospatu zan.

Santu onen eguna neguan izaten da ta sarritan otza ta euria izaten dira, orregaitik egin dabe egunaren aldaketa ori.

Ermitatxu ori Zeanuri ta Dima'ren bitarteko mendi baten dago. Bere inguruko auzoak utsik dagoz: erritik urrin eta, jakiña, ezin aurrerantza aundirik egin...

Baiña egun orretan ainbat jente bertaratu zan eguna igaroteko ustez, batez be gazteak.

Mezea amaiketan eta ondoren patata ta arrautzezko opillaren leiaketa bat izan zan eta ainbatek aurkeztu eben eurena. Irabazle ta txapeldun Luis Mari Etxezazarraga izan zan. Zorionak. Ondo da danerik jakitea.

* * *

San Juan eguna. Ainbat saiño egin ziran erri oneitan aurre-egunean.

Antxiñakoa ei da oitura au. Irakurri barri daukagu beroren barria. Lekuona jaunaren idaz-lantxo baten.

Guk onela abestuten gendun:

«Deun Joanes; sorgin, eltxo ta zorri guztiak
(dira erretan;
soloetako landara onak garbi geratu daietezan,
Gora garbitasuna.
eupa bizkor egin suari bira,
uju-uju
San Juanera goaz gu».

Emen Altzua'ko auzunean ospatuten da. Gu bertaratu giñan: entzute aundia euki dogu bertan egiten diran eleizkuzuna buruz. Eta orrelan izan be. Amaiketan alkar-mezea: bertako gazteak abestu eben; ederto gero! Izlariak bere trebetasuna agertu eban eta jakin-bearreko gauza asko esan be, entzuleak estulik be ez eta arrauzirik be ez. Ondoren ardao zuria eta galletak. Guk uste gendun txistulariren bat izango zala eta jantza-aldi batzuk egiteko gogoa ba geunkan, baiña urrengoan izan bearko dau.

Altzuako abade apal eta umilla
Erria serbitzeko eskiñi zarana
Euskera ikasten egin dozu alegiña
Emen deitzen dautzue: gure abade ona.
Jarraitu, bai, izaten euskaldun garbia
Olan gaizkatuko dogu Euskal-erria.

* * *

Euskaldun barri ta zarrok
Alkartu gaitezan pozez
Euskera maite il ez daiten
samintasunez eta gosez.

* * *

«Basa-jaun» ari: Artu dodaz zuk Urkiola'tik bialduriko agurrak, eta eskerrik asko. Ikusten da zuk gogotsu jarraituten dozula euskal-arlo oneitan. Guk bere alegin egiten dogu aldizkari onen aldez.

GORBEIATARRA

Ondarrabia

ANAIDIKO JAIAK

Ondarrabitarrak zenbait oitura zar politeri iraun arazten ba-dakite. Beretariko bat, Santixa eguneko, euskera mordoilloz «Kutxa Entrega» izenez ezagutzen dana.

—Baiña Santixa eguneko egipen onek Deun Kepa egunean du asiera. Ondarrabia'ko arraintzaleen anaidi edo kofradiak urtero Deun Kepa egunean bere agintari nagusi edo abata berria aukeratzen du.

Ortarako ontzietako lemazai guziak meza nagusia entzutera eliz nagusian biltzen dira. Alako talde ederrik! Itxasoak eman oi duan gorri beltz kolore ederreko eundak gizaseme mardul, korbata ta guzi ongi jantzita aldara nagusiko zabalunea beteaz egunari dagokion meza bikaiña entzuten. Meza bukatzean guziak sakristira ta gizaldiak zear irauten duan oiturari jarraituaz antxe beretariko bat aukeratzen dute anaidiko buru edo berak esan dutenez, abata, urte beterako. Jakiña, aukeratze au autarki bidez egiten da.

Ala ere Santixa egunerarte lengo agintariak jarraitzen dute anaidiko arduradun.

Santixa egunean (ondarrabitarrak Santiago egunа esaten dute) ontzi guziak kaian arkitzen dira naita aurreko egunetan urrutiko itxasoetan arraintzan ari. Egun ontan arratsaldeko seirak inguruan anaidiko etxetik lagun taldea ateratzen da elizaruntz, ateratzeko diran eta sartzeko diran kofradiako agintariak, arraunlari ta musika taldea lagun dituela ta baita alkate ta itxas agintari nagusiak ere, ta danen erdian erregingai bat bezela neska gazte bat arraintzale anaidiko agiriak gordeten dituan kutxa aztuna buruan daramala baiña lerden eta burua zutik, erriko guzien txaloak jasoaz.

Elizan lengo agintariak berrieri anaidiko agintaritza emandakoan berriro kofradi etxera ta an atarian kutxa daraman neskatillak soiñu otsean bere oiñen gaiñean alik eta bira geien emango ditu, lau, sei, al badu amar ere bai jendearen txalo artean.

Olantxe urtero, beti gauza berria ba'litz bezela ikusteko zaletasunez jendea.

Ondarrabi'ko beste berri nabarmena Santixa aurregunez Bienvenida'ri egin zitzaion omenaldia izan da.

Ez uste izan irakurle, Bienvenida ori galtza motzak zituanetik asita ia aguretu arte zezen ilten ari dana danik. Ez, Bienvenida, ia eun kiloko arraintzaletako emakumea da, Ondarrabi'ko kai inguruan guziz ezaguna.

Andre erritar edo ospetsuagorik gutxi edonun ere. Danean ikusten da, daneri laguntzeko prest beti; umeari kristau ikasbidea irakatsi, elizako kanpaiak jo, eriotz berria auzoan eman, askotan arako esakera erabilliaz kaletik deiturik». Urlia, berendiak Jainkoa'ri kontu eman diola», aldizkarien arpidetza egin, edozeiñeri errekaduak egin, ta abar. Iñoiz berakin jendeak parre ederrik egin izan du, sokamuturrean zezenari igeska edo sokatik tiraka itxasoan sarturik. Ta estropadetan ere ikustekoa izaten zan bere umorea, ostroa eskuetan zuala ta ume taldea lagun kalerik kale abesti ta karrazika.

Auxe ta geiago da Bienvenida andrea, ta Ondarrabi'ko jendeak maite-maite dualako esku erakutsiak egin dizkio.

Urte askotako Bienvenida.

KAMIÑAZPI

Usansolo

ILLETAK

Atsekabean dago Arana'tar sendia. Larogeita amabi urte zituala, Aitaren etxera joan jaku Ereño'tar Ageda, gure Arana'tar Jon'en ama, ta Garai'tar Nikolas'en amagiñarreba.

Emakume zintzo ta euskalzalea, sendi ospetsu ta kementsua sortu eban, gure erriko arazoetan.

Au alan dan ezkero, bere seme Jon, bere ama illa zala deia ekarten eldu zanean, oar bat egin euskun esanez. «Gure amak euskera garbian egiten ebazan beti bere izketaldiak, ta baita izkuntza maitegarri orretan bere semealabari erakutsi be, ta bere eleizkizunak onela izan bear dabe bere omenez».

Bere gogoa betetzeko, Labeaga ta Usansolo'ko auzuneak alkartu giñan ta Ageda'ri euskeraz egin jakozan azken agurrak.

Sendi jator bi oneik AGUR irakurleak diran ezkero, aldizkari onen bitartez, gure atsekabea azaltzea nai dogu, Jainkoari otoitz bat egiñaz Ageda'ren betiko atsedenaren alde. Goian bego!

EZKONBERRIAK

Emaldiñe'neko basetxea, utsiten asi da. Sendi jator euskalzale onetatik, Jose-Mari seme zarrenak iges egin dausku Arrasate'ra.

Bere emaztegaia nai ta euskalduna izan ez, zintzo jokatuko dabela euskera ikasten, uste dogu, bere senargaiaren zaletasuna ikusiaz.

Ekin eta jarrai Jose-Mari zuen abi barrian orain arte lez.

Zorionak biori!

Beste ezkontza bat be izan dogu gure auzunean.

Iragorri'tar Sabin'ek bizi barri bat artu dau. Beti ainbat eresi entsunekoa ba'da, bai bere aitaren alboka aldetik, edo bere arreba ta gure biotzeko Amaia' ren aldetik, bere ezkontzan entzunekoak, Jose-Mari, Amaia'ren senargaia jotzaille zala, eztitzuagoak izango ziran bera ta bere emaztegaiantzat. Zorionak biori Sabin, orain eta betiko.

Irugarren sendi barri bat be sortu da Iñaki Deuna'ren egunean.

Bilbao'tar Sorne'k, Ignasio'ren alaba ta Begoña, «Andra Mari» taldeko txistularaiaren aizteak; bere sendia utzi ta Patxi'gaz buztarri bakarra artu dau.

Euskerazko meza barruan ezkondu ziran, ta eurentzat abestu eban erriko gaztediak gogo aundienagaz. Batez be Julen'en abesti bakarrak, ainbat eztinegar lortu eban.

Zorionak biotz biotzez, biori!

ATXUTEGI'TAR JULENE

URRIÑAGO TA URRAGO

Mr. Peter T. Cenarrusa; Zerranuzabeitia guretzako, euskalduna da jatorriz ta biotzez, baiña orain lenengoz zapaldu al izan dau bere gurasoen lurra. Ta bere bizitza guztia Ameriketan igaro izan arren, ez jako euskerarik aztu, beti daroalako bere biotz barru-barruan.

Aitor'en izkuntza zarra, berea. Erakutsi ederra euskaldunontzat, etxean bizi garan euskaldunontzat. Bizkaieraz egin dausku, ta ezin igarri emen bertan jaio ta azi ez danik.

Zenarruza jauna Idaho'ko jarlauritzan Laterri-idazkaria da, ta Euskal-erri'ra etorri jakun ezkero, berakin alkar-izketa bat izateko aukera izan dogu. Bilbao'ko Hotel Avenida'n aurkitu dogu; nortzuk garan azaldurik biotz zabalik artu gaitu.

Euskal-erria bera dan lez ezagutu gura dau ta orretarako Bizkai ta Gipuzkoa'ko baserritarrakaz ainbat izketaldi eder izan dauz. Bidean joiala lanean ikusten eban edozein lugiñeri agur egin eta izketan jartzen ei-da. Olan euskaldun asko ezagutu dau, ta pozik ibilli da Euskal-erri'ko bazter guztietan.

Ta beste geure alkar-izketaren barri emongo dautzuet:

—Euskaldunak Ameriketan pozik bizi ete-dira?

—Bai, pozik bizi dira. Amerikanoen artean euskalduna oso ondo ikusia da; ango espetxeetan ez dot zekula be euskaldunik ikusi. Ta beargiñak diranetik toki askotan ikusten doguz arduradun lanetan agertzen dirala.

Izan ete-dabe iñoiz «diskriminaziñorik» euren kalterako?

—Ez, iñoiz bere ez. Esan dautsuedan lez Idaho'ko lantoki garrantzitsuenetan nagusi agertzen jakuz. Idaho'ko iru Banko aundienak euskaldunen eskuetan dagoz, onek naiko agertzen dau euskalduna noraiño ondo artua dan.


—Orduan, euskaldun batek Ameriketan lana aurkitzea errezago dau beste edozeiñek baiño?

—Bai, askoz bere errezago; amerikanoak lenengo artzen dabena euskalduna izaten da, ta ori toki guztietan. Aparteko izakerea dabela esaten dabe.

—Guk, Euskal-erri'kook eta ango euskaldunak, zer egin daikegu artu-emon indartsuagoak izateko?

—Biderik egokina izparringi ori (AGUR eroan geuntzan) ara bialtzea izango litzake, ta angoak bertako barriak emon. Besterik ezin ba'da, an ateratzen dan «EUZKORRIA»'ren bidez alkar ezagutzera emon. Izaten doguz baita, irrati aldiak, ordubetekoa astero, euskerazko kantak eta barriak emoten.

Nere ustez gaiñera, Ameriketa'ko beste toki askotan diran euskaldunakaz bere, artu-emon geiago izan bear genduke, bai Mexiko'n degozanakaz baita Venezuela'koegaz be, ta beste guztiegaz.



—Nola aurkitu dozu gure erri au, eta euskerea bera emen?

—Esan bearrean naiz, uste neban baiño euskaldun geiago aurkitu dodazala, batez bere Gipuzkoa'n eta itxas-ertzeko errietan. Jakin dot Bilbo'n industri asko dagola, ta orregaitik euskera gitxiago egiten dala. Zuek emen, kanpoko jentearen ujala daukazue, Euskalerri'ko beste edozein tokitan baiño geiago.

—Ezagutzen zenduan Lynne Fereday, gure artean il dan zuen erritar a?

—Bai, lenago ondo ezagutzen neban, baiña aspaldi ontan ez dot ikusten izan.

—Bere euskerarenganako zalestasuna, ezaguna ete-da ango euskaldunen artean?

—Orixe bai, ango jenteak ba-daki zelango euskal-zaletasuna eban. Orain urtebete, emen izan zan euskerea ikastera etorrita, ta berton nere semeagaz batera egon zan; ara eldu ziranean ederto egiten eben euskeraz.

—Ainbeste ikusitakoa zareanetik, zer esango leuskiozu emengo euskaldunar gure erriak euskaldun iraun dagian?

—Argi ikusi dot euskaldunen gogo ona; gure izkuntza, munduan danik zarrena, aurrera eroateko lan aundia egiten dabela, ta onek asko poztuten nau. Beste alde batetik, ango euskaldunak bere, egingo dogu geure alegiña izkuntzea aurrera eroaten, garbi ta txukun, gurea be ba-da-ta.

Ez dago zer esanik, jaunak, gizon onen gogo ona egertzeko. Bere erantzun guztietan argi azalduten dausku bere euskal-gogoa. Au guretzat pozgarria da ta eredu. Alde batetik, ain urrun izan eta orain arte iñoiz Euskal-erria zapaldu bakoa izan arren, euskeraz egiten dabelako. Ta bestetik, Ipar-ameriketa'ko gizonik nagusienen artean dagolako.

Gure AGUR onetatik, eskerrak emon gura dautsadaz biotz-biotzetik. Zeuk, jaun agurgarri orrek agertu dauskuzun euskalzaletasunagaitik. Izan dagizula etxera-bide on bat!

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

Danok dakigu arako barrionak diñona: Zera... bein emakume bat aragikeri pekatuan arkituta, pariseoak Jesus'eri eroan eutsela, Moises'en legeak agintzen ebanez pekatu aretan artzen ziran emakumeak arrika il bear ebela ta, andra ari zer egin bear jakon itaunka.

Jakiña, emakume a gizon bategaz loitu zan, baiña parisea areintzat edo Moises'en legearentzat emakumea zan bakarrik erruduna, eriotza bera be merezi ebana; gizonarentzat zigorrik txikienik be ez eben eskatzen, gizonak nai eban guztia egin eikean kontixu.

Olantxe izan dira, askotan, munduko kontuak, olakoxeak munduko legeak; gizonak, sendoagoa dalako, gizadiaren nagusitza beregandu egin dau, ta emakumea menderatu, bai oituraz ta bai orretarako legeak emonaz be. Emakumeak milla gauzatan baztartuak izan dira, eskubiderik ez dabe izan.

Zorionez, azken urteotan aldaketa aundiak munduan ikusten dira ta emakumeak eskubide asko beregandu dabez. Poztutekoa auxe! Baiña emakumeen eskubide kontu onetan ez nago batera oso-osorik eurak danean gizonakaz bardindu nai dabezenakaz. Ta au euren ona naian. Aurten auxe irakurri neban aldizkari baten:

«Emakumearen gizartean aurrerapide berezi bat ikusten ahal degu, iraultza txiki bat. Iraultza txikia izan da, baiña iraultza bat behinik bein. Españian. Frantzian eta Inglaterra baiño lehenago, auteskunderako eskubidea iritxi zuan emakumeak».

«1.861 garreneko urtean izan zan lortze ori. Geroztik, mariñel izateko eskariak egin dira. Geroago behar bada, gudari izateko eskariak egingo dira».

Zer, itxasora ta gudara joatea emakumearentzat konkistak, irabaziak al dira? Lana ez da gizonarentzat konkista edo irabazitako alderdi ona, bizi nai ba'dau bizkargaiñeratu bear daben zama, eginkizun aztuna baiño. Abereak, erle, txindurri ta olakoren bat edo beste kenduta, lanik ez dabe egiten. Gizonak ostera egin egin bear. Barriro diñot, lana ez da gizonaren eskubidea, bearkuna, obligaziñoia baiño. Jopu edo esklaboak ez ziran ezetariko eskubideen jaube; lan egitea zan euren egiteko bakarra. Ederra eskubidea!

Gizonak eta emakumeak lan kontuan daben desbardintasuna ez da onei eskubideak ukatzen jakozelako; geienbat izaki desbardiñak diralako da. Ez dakigu denboragaz noraiño elduko garan. Bear bada denboragaz laboratorietan sortuko dira umeak. Baiña orain beintzat emakumeen bitartez soillik munduratu daikeez. Ta ez umeak munduratzeko bakarrik, baita azteko be emakumea bear, al dala bere ama, gizonak ugatzik ez dautso emongo-ta. Auxe da izan be emakumeari duintasuna damotsona, umea munduratu ta azi ta ezitea, ta ez gizonen lan aztunak egiten etxetik kanpoan jarduteak.

Edozer lan mota egin al izateko eskubidea emakumeak izan bear dabela? Bai, jaunak! Baiña eurenzat egokiak diran lanetarako. Umeai be lanik egiten ez jake lagaten, eskola ikasi bearra dabelako ta lanerako makalak diralako. Bardin-bardin, lan asko ez dira emakumeentzat.

Emakumeak mariñel izateko eskubidea eskatu ei da. Bai, ontzi andietan sartuta pilototza edo olako eginkizunen baten arduradun izanaz munduz mundu ibilteko ez da bizibide txarra. Baiña Gran Sol'era arrastera edo negu erdian gabaz ardorera antxobatara joan daitezen bidean ipiñi bear ete doguz ba? Edo pikotxa eskutara emon eta meatz zuloetan sartu edo txispa bizkarreratuaz gudara bialdu?

Bai, emakumeak euren buru jaube izan bear dira euren ondasunakaz agintzeko, eskubide osoa lanerako nai politikarako. Baiña euren ardura nagusiena pamilia izan bear dala, ta lan mota batzuk eurentzat ez dirala egokiak kontuan izanaz.

KAMIÑAZPI

UDAKO BIDEZ

Negu baltz, illun, negu latzgarri, goibela igaro ondoren, pozgarri izaten dira udaldiko egun argi, egun luze eguzkitsuak. Asi baserritar nekazari ta abar, batez be, erri aundi, urietako biztanleak garramuraz, zai egon oi gara egualdi onak noiz asi, noiz egingo, zai egoten gara bai, egunak zenbatuz, neguko egun aspergarri, egun latzak ta, bere gau luzeak noiz amaituko, gero aize billa etxetik urten ta, bakoitzak al daben erara or-emen egurasteko. Batzuk mendietaratza bideratzen dira, erri txikietako latsondo errekarte ibai-ondoetako itzalpe gozo, atsegintsuen egarriz. Beste batzuk ostera, itxas zaleago diranak ta, beren soin zurbillak beingo batean baltzturik ikusi nai izaten dabenak, itxas-ertzetako aitzarte ta ondartzatara zuzentzen dira, kresalusaizko aize osasuntsua ta, batez be bustialdi batzuk artuaz, eguzkiz asetzera.

Olaxe, al daben guztiak, etxetik iges dagie igandeak ta, iai-egunak gozartuz. Ta, emen dakusgu gizadia eromen osoan lasterka, prisaz, alde guztietara edatua; etxetik iges dagi eguzki ta aize osasungarri orren billa, egun bat edo beste, ondo igarotzeko asmoz, lanak sortzen dabezan neke ta arazoak zerbait aztuz.

Bideak, berebillez betetzen dira ta bata-bestearen lorratzean musturka, pillatuak ikusten doguz ezin geiagoz ta, okerrena, danak prisaz... Norako prisa? Gaur, edozeiñez ez, baiña, aurrez ikusten dira berebildunak ta, auek, aberats edo aberats antzeko, askoz errezago izaten dabe urrunagoko erri edo tokietara ioan, zuzentzea; ta, zer esanik ez, berebillean berera-berera, nekerik gabe eroan leikez bai ianari, bai edari ta abar. Ori be, bentaja ederra da.

Onela dakusguz bideak berebillez beterik, gaiñezka. Oiñezko errukarria! Gure Euskalerria uda garaian atzerritarrez betetzen jaku: doistar, pantzetar, ingalandar ta batez be, españarrez ta, nai ta ez ona datoztenak txakurtxikiren bat emen itzi bear. Ta, iakiña, etortze onek poztutzen dauz gure dendari, ostatulari ta abar, ta guztien ganetik estadua... Baiña erri langilleak, alobeskas batgaz bizi danak ez dakit orrelako poztasunik izango daben, beti, gauzak gora ta gora doazela ikusirik. Itxuran bizitzeko lan geiago, ordu edo zerbait geiago egin bearko dau bai Baiña ori egia izanik be, udan, gitxi-asko, udan danok poztutzen gara, bai aberats eukitsuak ta bai pobreak; egualdi onakaz esan leike izadiaren antzera, gorputza be, arindu, alaitu egiten dala.

Berebillik ez dabenak oiñez, bultziz ta autobusetan ibiltzera beartua dago. Ta, etxetik urten baiño lenago pentsatu egin bear da, igande edo iai-egunen batean nora ta, zelan ta nundik ibilli bear daben iakiteko. Edota, iatekorik eruan ala ez. Orreik dira diru gitxi izateak sortzen dabezan buruausteak. Ni be, oiñezkoa izanik onela ibiltzen naiz pentsamentuetan sartua baiña, moldatzen gara noizik bein, ibilalditxuren bat egiteko. Geienetan, emazte ta semea lagun, aste bete lenago asten gara oldoztu ta begiratuz: zein erri, zein aldetara ioango gara? Batak au, besteak ori... azkenean bai, orraxe! Ta gu be, or goaz bultsi ta autobusen batean.

Azkenengo ibillaldietako erriak Amezketa ta Lesaka izan doguz. Errialde zoragarriak! Ta, ganera biak erri euskaldun, erri langille, ederrak. Amezketa, Pernando Amezketarraren emen usgarria Txindoki'ren aldamenean zuztartua ta, Lesaka napar-erri langillea, euskal kutsu betea bai arkitektura aldetik ta bai erriaren nortasun ta izakeraz. Eredugarri dogu napar-erri au, euskel idazkun, iragarkiak, nun-nai ostatuen izenak, ardandegienak, Aorro Kutxarenak ta abar. Eliza be ikusi genduan, ta pozez beterik gelditu nintzan eliza orren euskel-giro ederra ikusiaz. Iezarleku luzeak bi aldetara ta, emen bakoitzaren tokian baserri edo sendi bakoitzaren izenak ta, zintzilik, dingilizka lokarri baten pentzura, euskerazko meza-liburu, idaztiño begikua.

Euskerari emen bear daben toki ta garrantzia emon dautsoe¡ «Saski Ostatu»'n bazkaldu ondoren pozik atara giñan, erri ontatik. Onela ibiltzen gara al dogunean ikusi ta, ikasiz, emen euskaldunak ikertu ta ezagutuz. Zer gauza atsegingarriagorik? Erriko euskaldunakaz berba egiñaz gauza iakingarri asko ikasi geinkez gitxien uste dogun lekuan. Egokia izango litzake erri bakoitzeko mendi, lats, erreka, baserri izenak ta abar artzea. Ona emen mendizaleentzako ta, ez diranentzako be bai; ta, obeto oraindik gai oni buruz, alkarte batzuk sortuko ba'litzake iztegi ta Euskalerriaren Iakintza ta Ezaupide obarako.

MUNIATEGI'TAR SABIN

AGUR

II URTEA
ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - IRAILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

BASERRIAK BAT

Munduak batasunerako bidea artu eta bide onen aurka joateko eskubiderik iñori ez dautso emoten.

—Edo alkartu edo il.

Eta baserritarrentzako be egun au da. Gure baserriak, Euskalerriaren mugarri agiria gaur arte, alkartzen ez ba'dira il egingo dira. Eun urte dira, edo gehiago, gure erritxuetako oleak galdu direla. Aldakuntza sakona egiten ez ba'dogu, bardin-bardin ilgo dira gure baserriak be.

Gaur berton ez dogu ikusten erbestetik datorkuzan ortu-ariak eta igaliak, gureak baiño merkeagoak direla? Gureak hobeak izan leitekez, baiña...

Eta alkartze, edo bat egite, onek gure etxekoarentzako aurka arrisku aundi bat dakarsku: geure askatasuna ta nortasuna, baserriak daukan gauzarik ederrenetariko bat, galtzeko arriskua, Baiña ori ta guzti be, arduraz ibilli ta gero, alkartu egin bear bizi gura ba'dogu.

* * *

Orretarako, lenengo, gizonak gertatu egin bear gara, eta geu bear dan bestean geniduak ez ba'gara be, geure ostekoak asmotuten alegindu: jakitunak, alkartetzaleak, ertzak amostuta, norberekeri gabeak, zuzentasunaren billatzailleak eta alkar-izketarako argiak eta eroapentsuak izan daitezala.

Eta gero, zelango alkarteak egin? Aundiak ala txikiak?

Alkarte aundiak irabazteko obeak eta merke saldu al izateko onurakorrak izan leitekez. Gaurko alkarte aundi batzuetara begiratzen ba'dogu ori laster ikusiko dogu; merke saltzen ez ba'dabe, beintzat erak ba daukez. Baiña iru mutatz ondo aundiak agiri dabez: goiko mailan batek menperatuta dagoz, baserritarra iñor ez da euren barruan eta langilleak jazoten diran gauzen barri-berik ez dabe izaten.

Eta alkarte txikiak? Geienetan idargeak izaten dira, lanaren frutua karuagoa izaten da eta batzarkideen artean etxeko gora-beren antzekoak sortzen dira, argi berba egiten da ta. Baiña guztiak arduradun izaten dira, barriak jakiten dabez, bakotxaren nortasuna geituez doa.

Dana kontu egin ezkero, alkarte txikiak euskaldunen izakereagaz obeto batzen dirala uste dot. Eta txikitasunak izan leikezan akatzak kentzeko, gero, alkargo bat egiteko bidea artzea ondo izango da. Baiña txikien nortasuna beti bentzat artuez.

* * *

Batasun txiki oneik, txikiak diralako, egitea erreza dala ez uste izan.

Lenengo ta bein, arauak ondo aztertu bear dira eta batzarkideen artean osotu. Gero bear diran baimenak lortu. Eta, andiño, asi baiño len, naikoa gora-bera ta joan-etorri izango dira. Bakotxak bere egin-bear lez artu bear alkarte au aurrera eroatea eta sendotasunez jokatu.

Lanean asi baiño len, nik uste dot, alkarteak daukazan lurrak, bakotxa bere mailan ipiñi bear dira: bizkartsuak diranak baso-zugatzak sartzeko, apur bat leunagoak bedartzak egiteko eta leunenak solo izateko edo arnari-zuhatzak sartzeko. Abereetan bere aukeramen bat egin bearra izango: zeintzuk izan leitekezan abererik onurakorrenak, zelako tokiak eurentzak, zelako janariak, eta abar. Alkarte oneitan buru argiz jokatu bearra izango da. Ba dira, orregatiño, gure baserrietan gizon argiak ugari; eta bear izango dira, baserria egituneratu ta aurrera eroan gura ba'dogu.

AGUR



BASERRITARRA... ZURI!

Langille baten semea naiz, baserritarraren illobea, kaletarra jayotzaz, karreraduna...

Ez natorkizue arrokeriz, apal-apalik baiño. Zer esaten? Zeuna dozuen aberastasunik aundiena ez dagizuela galdu eskatzen.

Zeuek zarie euskeraren oiñarririk gogorrena; munduko jakintsu guztiak maite daben izkuntzarena.

Zergaitik aberastasun ori galdu? Zuen seme-alabak eskolea ikasteko oztopoa, kaltegarria dala entzun ba'dozue... guzurra da!

Emen nago ni, euskaldun jaioa, ta ni lez millaka dira karreradun euskaldunak.

Beste izkuntzak ikasteko erreztasuna euskaldun izateak emoten dau; inglesa besteen gaiñetik.

«Jakiteak ez dau ogirik jaten» esaten da... zergaitik, orduan, galtzen itxi?

Jakintsu asko ikasten dabiz, zergaitik ba zeure seme-alabei irakatsi ez?

Ez dozu ikusten, Amerika'n jayotako gizon jakitunak, euskeraz eta ingleses egiten dabela?

Zure amak eta aitak emondakoa, zergaitik zeure seme-alabei ukatu?

Erderea ondo ez jakiteak lotsatzen zaitu? Gaur, zure seme-alabak ez dabe olako arazorik izango.

Euskerea euskaldun guztiena da, emen ez dago politikarik. Euskerea iñoiz galtzen ba'da, gure erriarenak egin dau.

Baserritarra, zeu zara Euskal-Erria'ren etorkizunerako giltzduna.

Gorde eta zabaldu dagigun gure izkuntzea!

MUNEGAIN

BASERRIA PIZTU

Berriro, baserritar mutil gazte batzuekin luzaroan jarduteko egokiera izan dut; gure arteko izketa-gaya: baserria ta bertan arkitzen genitun buruausteak.

Danok ongi asko ezagutzen ditugun zailtasunetatik-at, beste zailtasun aundiagoren bat ez ote zegon galdetu nien; alegiya, len emakumezkoak, neskatxak, baserrietara ezkondu nai ezik zebiltzan bezelaxe, baserrietako mayorazkoak ere, baserrian gelditu nai ezik asi diranez, zergatik ote zan jakin nai nuala.

Beren erantzuna garbia izan zan: bizimodu latzak eta gogorrak baiño geyago, irabazbide onik ez ikusteak bultzatzen du gaurko mayorazgo gaztea kaleruntz.

Orduan, nik beste galdera au bota nien: Bear ainbat irabazbide ez izatea baldin ba'da, ezbear ori zuzendu diteke, baserrian irabazbide ona jarri diteke; ala ere ez al da baserritar gazteen artean, baserrirako zaletasun gutxi ikusten? Ez al zaizkigu baserritar gazteak, kaleko bizimodu jakiñakin ametsetan jarri?

Eurak, ezetz eta ezetz zioten; baserrian irabazbide ona jarri zekero, orain kalean lana egin eta goiz-illuntzetan baserrian zerbait lagunduaz dabiltzanetatik asko ta asko, baserrian geldituko lirakela.

Alde batetik poztu ninduten; bestetik, esandako guzia egi-egiya ote zan siñistu eziñik gelditu nintzan. Nik ba-dakit, baserriko bizitza oraingo eran latza dala, oso latza, baiña laztasun au gozatu eziñekoa ez da. Baserriak irabazbide ona ba'lu, bertan egiten diran lan danak edo geyenak beintzat bai, botoipean, neke geyegirik gabe, aurrerapenen bidez jarri eziñik ez leudeke.

Irabazbide obea jartzen erreza ez dala danok dakigu; eziña ere ez da. Baratz eta igali-frutetara jarritakoak, burua ederki asko jasota ikusten ditugu. Danok ortara jarri ezkero, bertarako geyegi izango litzakena atzerrietan saltzeko, alkartasunen bearra izango litzake eta au, beste leku guzietan egiten dan bezelaxe, emen ere egin eziñik ez legoke.

Baserriko irabaziak ugarituko ba'dira, ez da naikoa baserrian orain egiten dan baiño geyago egitea bakarrik; geyago sortuko dan ori, ongi saldu bear da ta gure artean gero ta jende geyago ba'gaude ere, nai ta nai ez, erritik-at saldu bearra etorriko litzake, eta ori, bakarka egiterik ez dago.

Azken urte auetan, emen eta an egin diran sayoak erakutsi digutenez, gure baserritarra, alkartuta lanean jarduteko oso ona danik ezin esango dugu, baiña bakarka lana egin eta bakoitzak geyegi sortu duan ori, alkartuta saltzera, azkar jarriko litzakelakoan nago.

Orain arte esandakoetan argi ikusten dana auxe da: baserriak iraungo ba'du, baserria piztuko ba'da, irabazbide ona jarri bear zayo lendabizi. Ontarako, emen sayo bat eta an bestea egiten ibilli gabe, BASERRI-BURU bezela, leku jakin batean, buruz antolatutako sayo oso bat egin bear litzake ta sayo au egiteko, ez aukeratu baserririk onena ta erosoena, ez; edozein baserri antzeko bat artu ta antxe egin lanketa guziak. Kontuak argi ta garbi eraman eta sayoa bukatutakoan euxe esan: Zure baserrian irabazbide ona izan eziñik ez daukazu; au, ori ta ura, orrela egin bear dituzu ta orrela egiñaz, ainbesteko irabazia izateko egokiera izango duzu.

Baserrian pozik, neke geyegirik gabe ta irabazi onakin lan eta bizi izateko egokiera jarri bear da ta nere iritziz, asmo oyek danak aurrera eraman eziñik ez dago.

OÑATIBIA'TAR MANU'K

KARDABERAZ ABA TA BASERRITARRAK

«Euskarak burua jasotzea Jaungoikuak nai du:
Gure baserritar prestuak dirauten artean,
euskerak iaruango du» (Euskeraren Berri Onak, I.).

Berreun eta amar urte dira itz auek Iruña'ko Andoni Castilla'ren irarkolan irarriak izan zirala. Kardaberaz Aba il baiño amar urte lenago. Juangoiko Betikorrak euskerak burua jasotzea nai dau, betikorrak ez diran baserritar «prestuak» dirauten arte euskerak iraungo dau. Noiz arte? Kardaberaz'ek ez diño baserritarrak iraungo daben arte, baserritar *prestuak* iraungo daben arte baiño. Zeintzuk ete diran orrelako baserritarrak jakin bear dogu. Euren egikunetan zuzen ibilten dakien baserritarrak, ondo azi ta ondo ezita dagozan baserritarrak. Ez da naikoa baserrian jayoak izatea, jayotzea azikera ta ezikereaz biribildu bear da: baserritar *prestuak*, baserritar ikasiak.

EUSKAL-ELIZTI EDO GRAMATIKA

Entzun Kardaberaz Aba'ri: «Maisuen maisu andi San Agustin bat etzen dediñatu... gramatikako libru bat eskribitu ta gasteai A, B, C'tik asi ta erakusten... Zergatik bada, euskaldunak orretzaz dediñatu bear?» (Euskeraren Berri Onak, III). Aor baserritar naiz uritarrak garan euskotarrok «prestuak» izateko bidea. Ikastaroak, Irakastetxeak, Ikastolak. Ba-gabiltz egunotan euskerea gora ta euskerea bera, euskereak aurreruntz ala atzeruntz egiten ete-dauan eta orrelako auziakin. Emen eta an irakurten dogu euskereak uri aundietan, Bilbo'n, Donosti'n, Iruña'n Gazteiz'en aurrera egiten dauala. Au benetan txalogarria da. Nun dago, baiña, aurrerakuntza orren susterraya? Gazteai Ikastoletan *agaka* edo *abezeta* irakasten yakelako, uri aundi orreitan gazte-taldeak eta gizon aziak be euskerea ikasteko alegiñak egiten dabezelako.

Baserrietan, barriz, euskereak atzera egiten dauala entsuten dogu. Aor Aramayona, Galdakano ta beste erritxuak dirala-ta gure aldizkingietan erabilli dan izkanbilla. Zergaitik atzerakada ori? Baserrietan Ikastolarik ez dagolako; Baserrietan A, B, Z'tik asita euskerea ikasten eta irakasten ez dalako. Ikastolak, Irakastolak, aor baserritar «prestuak» lortzeko bidea, aor euskereak beti ta beti irauteko bidea. Ez daigun aldia galdu txikikerietan.

EUSKERAZ IRAKURTZEA

Alaka ta negarka gabiltz Euskal-erria'n gitxi be gitxi irakurten dala-ta. Zelan irakurriko dabe, ba, irakurten ikasi ez ba'dabe? Jarri baserritar baten aurrean zenbaki batzuk, 8 naiz 12 esate baterako. Zelan irakurten dauz? Ocho, doze. Zergatik? Ikastolan orrelaxe ikasi dauzalako ta orrelaxe bakarrik. Barriz diñot: Ez dagigun aldia galdu txikikerietan, goazen susterraira; baserritarrak ikastolak bear dabez. Laterriak baimenik emoten ez ba'dausku, guk eskatu bein eta barriz. Guztiok *Batuta* orrexetarako.

Gure euskerearen batasuna ortik etorriko da. Ez h baten bidez. H orretzaz entzun Kardaberaz'ek zer diñon: «...emen gure euskeran ta Bizkaian h ori alfarriko edo serbitzen ez duen gauza da... Abrahan esateko Abrajan diote. Ken ortik: gure euskera suabe eztikoarentzat soñu ori ezta». (Euskeraren Berri Onak, IV.).

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

EUSKERA

Euskaldunak euskeraz... baiña euskeraz!

«Agur» gure aldizkariari buruz iritzi bi entzun nituan lengo batean; bermeotar jator batek gaurkotasun geiago bear gendula, laterriarteko arazo geiago, «politika internazional» gaiak. Egun beratan ondarruko emakume zintzo batek ederto etorrela iñostan. Bear bada biak arrazoidun eta bear diran zuzenketak egingo doguz baiña gaur ez natorkizue, oitura dan bezela, erriarteko griñari buruz, gure izkuntzarenari buruz baiño. Zer dala ta?

Euskerea bere, batzuk «internazionalizatu» egin nai dabe, baiña ez beste laterrietan irakatsi, erbesteko itzekin nastatuaz betiko ondatu baiño... oztopo «burges» bat ete dalokoan edo...

Gure artean aspaldikoa dogu alako edo bestelako idazkerearen burruka. Gure izkuntzaren iztegia aberatsa da naiz ta euskalkietan sakabanatuta izan. Euskaldun zintzo guztien eginkizunik garrantzitsuena aberastasun ori zaintzea izan bear leuke, ez asmaketan astea, daukaguna gordetzea baiño. Ori orrela ete da? Ez orixe!

Larregi berotu nindun «Zeruko Argia»ren 440 gn. zenbakian irakurri nuen «artikulu» (obeto jatorko izen au) batek, «Klase kontzientzia eta zozialismoa» izen buruarekin egiña; baiña ez uste izan gaiagaitik (bakoitzaren iritziak, or konpon!), idazkeragaitik baiño eta ez H gaitik. Bitxi polit ori edonun eta edozela sartzea euskerearentzat kalterik txikiena litzake, oguzten ez dan izkia berez galduko da ta. Baiña orrez gaiñera gaurko idazle (?) edo idazten daben batzuk erdera *utsean eta erderazko joskeran idazten dabe.*

Len esandako idazlan orretan % 30 itz arrotz sartzen ditu egilleak, prantzesak (oraingo oiturazkoak), gaztelerazkoak, greziatarrak eta latiñezkoak. Sekula olako mordoillo moltzorik! Ori al da euskera?

Idazkera orren aldekoak aintzakotzat izan eben gazte batek itz-aldi baten esan ei eban: «Euskal Erriaren historia zear, euskaldunak ez du bein ere euskaldun izateko egokitasuna osorik izan; garai aretako gizonaren irudi eta izateko era konkretuetan, alegia», eta gerotxoago: «gero kultura gizona eta zibilizatua izateak, latino izateak esan nai zuen»... eta abar. Ederra kontua! Euskaldunak, bere sortzezko nortasuna osotzeko izan dabenik oztoporik aundiena greko-latina kulturaren ito naia izan da. Ez dozue Oteiza gure ertilari ozpetsuaren «Quosque tamdem» irakurri? Zergaitik ba kultura zapaltzaille orreri ateak oraindiño zabalago idiki?

Ez ete dira naiko indarkerizko legeak? ala etxe barruko etsaiak bear ete dira euskera erailtzeko?

Ziñestu eziñekoa da, euskerazko aldizkari batek euskeratzat olako «lenguajea» eskeintzea. Arpidedunik geienak izkuntzaren maitailleak dituzu, euretariko asko euskera ez dakitenak baiña laguntzearren arpidetzen diranak. Euskeraren jaun eta jaube erria da, euskaldun erria ta iñor ez da gauza izkuntzaren giltzak lapurtu ondoren, norberaren utskeria guztien iritzien gaiñetik sartzen asteko.

Zuzendariak eta korrektorak diñoen besteko esku zabalak ete dira?

Sasi-idazle askok erderaz pentzatu ta idatzi, gero euskeratzeko egiten dabe. Jakiña! gero itzak billatu eziñik erderazkoak artzen ditue. Ez da ez, gaiaren gaurkotasuna edo izkuntzaren txirotasuna, egillearen ezjakintasuna baiño, geienean beintzat. Etxe barruan daukaguz, zeozer dakitelakoan, erdal «alienaziñoari» (itz berezia) laguntzen dautsoen sasi jakintsuak. Euskera ondo ikasteko alperkeriz, aurpegi gogorra ordezko. Zertarako euskeraren muiñerarte sakondu? «Nik euskera batua eginen dut» esan eta beste batzuen iritziak norberekotzat azaldu!

Naikoa da jaunak! Ni H'ren aurka? Zer H ta zer porru! Sartu nai badozuez bokal bardin birik ez daukezan soiñeko zuloetan bere, baiña arren, euskerazko iztegia ta joskera erabilli edo bestela ikasi... edo erderaz idatzi, ez euskerantoz!

Parkatu gaurkotasun billa zabiltzen irakurle zintzuok baiña izkuntzaren iltzailleak etxean ikusteak geiegi berotzen nau.

Euskeraz! euskeraz! euskeraz! ez mordoillozko «euskerantoz»!

ARENAZA'TAR JOSU

ITZ BATZUK AZTERTZEN

Andana

Gaurko idazlan au itz bat edo beste aztertuaz izango da. «Andana» len gure idazkaietan ikusten ez zan itz au muturra agertzen asi da. Ara ondoren andik eta emendik artuta atal batzuk:

«...eliza berrietako zerbitzarien andana». «...kontuak atera zenbaterañoko arrotz andana sartu zaizkigun...» «...gazte eta gaztetxo andana dantzatu da».

Soiñu gozoko itza be ba-da ta barri zaleak abegi onez be artu, neska gazteak eskaparatean oial polit bat ikustean artzen daben lez. Bear ba'da ola idazten asi diranak itz ori bein be ez eben entsungo erriaren aotik. Guk bai, guk entzun izan dogu ta asko gaiñera. Lengo denboretan bixigutan ibilten ziranean, arraintzaleak txitean-potean erabilten eben. Uretan edo itxasoan lerrotan jaurtita arkitzen ziran apaxuari esaten eutsen. Orain neure errian bizi ba'nintz garbituko neban arazo au.

Itz au erdalduna da edo beintzat gaztelarrez be erabilten dana. Azkue'k ola euskeraten dau: «erreskada, lerro, ahil». Gure mariñelak emoten dautsen esanaia batera dator Azkue'k emoten dautsanagaz. Lardizabal'ek antzeko esanaia emoten dautso: «Orduan, Tito'c bigarren endanaco ateai aboztuaren zortzian su eman zien». Oneitan ikusten danez, itz ori, lerroan dagon talde edo saillari emoteko erabilten da. Izan liteke zenbait tokitan edozer talderi emoteko be. Baiña niri neuri ez jat atsegin jokabide au; Lerroan dagon taldeari emoteko bai, beste euskal jatorrik ez ba'dogu, baiña edozer talde, moltzo edo sailleri emoteko ez, esanai egokiagoko euskal itz jatorrak ba-doguzalako. Zer, «artalde» itza kenduta «artandana» idazten eta esaten asi bear ete gara ba?

Bear ba'da euskera batuaren izenean sartu eragin nai dauskue «Andana» itz au. Euskera batua ondo dago; ezer kalte bark egin al dana ba'da, betor ordu onean. Baiña euskera batua euskera jatorrean sustraitua izan bear dau ta ez sasi euskeran.

Izenordeak

Esaldi bateko itzik garrantzitsuena izenordea danean, bizkaieraz aldakuntza txikitxu bat egiten dautsagu. Olakoetan «ni, zu, gu, zuek» itzak «neu, zeu, geu ta zeuek» esaten doguz: «Nire anaia Bilbo'n jaio zan eta ni Donostia'n». «Neu naz bakarrik, gure etxean, Erroma'ra joan bakoa». Ikusten danez ba-dabe aldakuntza oneik euren errazoia; geiagoko barik eta apetak emoten dauskualako edonoiz egiten doguzan aldaketak ez dira jator.

Beste dialektoetan be olako zerbait egiten da, baiña bat be errazoi barik, zergaitik dan be ez dakiela, bear ez danean askotan. Itxura danez, erri batzutan esate baterako «neure» erabilten dabe beti, itz ori inkiridun danean eta ez danean, eta «zeure» eta «geure» bein bez. Ondoren, idazkietatik artutako esaldi batzuk ipiñiko doguz ta parentesis ( ) artean itz ori izan bear litzaken erara sartuko dogu.

«Neuk (nik) hogei ta hamar zigarrillo erretzen ditut orain egunean». «Neure (nire) erriak hutsik eta tatxarik badu ugari». «Ze jende mota joaten da zeuk (zuk) abesten duzun aretora?»

KAMIÑAZPI

POZAK ETA KEZKAK

Ipar-aldeko Euskal-erri'an, Ondarru'ko lagun batzuk bazkaltzen. Jantoki aretan lanean egoaldeko gazte bat, emendik joandakoa. Gure lagunak, bere euskaldun itxurea ikusirik: «Zu andikoa izango zara, euskalduna ezta?» — «Ez, nik euskera pizkat baina batua». Gure lagunak barriro: «Baiña zelan batua?» — «Nik lapurdiko euskera» erdi erderazko izketan. Orduan gure lagunak lapurtar jatorrez ekin eutson, baiña alperrik, ez ekian arek ez lapurdikorik ez baturik. Geroago asarre, gure mutillak ez dakit zelako «teoriak» azaldu zituan, ez baiña euskarea ikasteko zaletasunik. Arratsalde berean kalean ikusi eben beste lagun bigaz, baiña erderaz.

Oneik ete-dira Euskal-erria euskaldunduko dauskuenak? Bai zera!

* * *

Auxe irakurri dogu Gipuzkoa'ko eguneroko baten, ta jakingarria da. Itxuraz, Donostia'ko Ostikoketa-Batzak, zelaian izaten diran zuzendari batzuek ez ebazan onartzen; eta geieneri parkatu ta barriz onartzen dauz, bat ez; ta au Pelayo Serrano izenekoa ei-da, orain sei-zazpi urte, Reala bigarren maillan jokatzen ebala, Badalona'n izan zan jokaldi baten, «txistulari» orrek Arzak eta beste bere iru lagun zelaitik etara ebazan «euskeraz egiten ebelako euren artean»!

* * *

Aspaldi Loiola'ko batzar batean, Euskera'ren «maixua» izlari: «Euskera Romanizatu egin bear genduke». Nola? Latiñetik datozen joskera zenbait sartuaz. Jakiña, oso lan erraza. Orrela euskeraz pentzatzen ikasi bearrik ez. Mugalde biko erderaz pentsatu, ta kito: guztia eginda... erderaz. Sartu gero zeren *batzuk baita «zergaitik orrela xamurrago da». «Romanizatzea» be, batasunaren izenean edo bestela «gazteen indarraren» izenean.*

* * *

Eibar'en bizi dan bat, biziro liberala da. Baiña ez beti: Barandiaran'dar Joxe Migel jaun jakintsuak egin eban idazti labur bat, norbaiten eskariz idatzia, ta etxegurasoeri eskeindua, ta orain barriz osorik argitaratzeko asmoan, liberal ori tarteko, eta... ausardia! Idazkerea, eskribikerea, ortografia aldatzeko eskatu dautso. Askatasunaren izenean bear bada, baiña Barandiaran euskal jakintsuari bere idaz-lana ta bere idazkerea alda-erazten. Iñun olakotik!

* * *

GOIZ ARGI'n Gaztañaga jaunak idatzi eban ari erantzuna emoteko, Euskaltzaindian, orrilleko batzarrean, batzuk itz bigunez zerbait esatekoaren alde, beste batzuk gogor egiteko eskatzen. Batek, eskutitzean: «Zuek ikusi, nere aurka ala Euskaltzaindia'ren aurka doan idatzi ori... edo olako zerbait. Gogor egitekoen alde, bat idazkaria, besteak ixillik, zeiñek ixildu bera? Ara baiña, epaituaren eskutik laguntzaille izatera eldu zan beste bat ez bigunago. Argi ibilli, Gaztañaga lagun zarra; ikusi nundik zabiltzan, bestela, askatasunaren izenean... batuko zaitute-ta.

* * *

Gaurko legeen azpian irakasle izateko bear diran agiriak, ezinbesteko tituloak eskuratzen alegintzen diran andereiñoak, ez doguz iñoiz bear dan neurrian eskertuko. Ta titulo-eza orri erantzuteko asmoan, naizta indar aundi bakoak izan, or alegindu dira batzu-batzuk, euren eskuetan agiriren bat jartzen: Bilbao'ko Euskerazaleak, Oñatibia jaunaren irakasketak... ta bein baiño sarriago ederto etorri jakoez estualdiren baten. Gaur, Euskaltzaindia bere txartel bat eskeintzen dator, ta oraingoz beintzat asmo onakin datorrela ziñestuko dogu: titulorik ez daukeenei orren ordezko zerbait eskeintzen; titulorik ez daukeenei bakarrik... baiña, baiñak oraingoz urrengorako.

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

LANETIK JAUBETZA

Ezin daikegunetik, batera, etxea zaindu ta basoan lan egin; landarak erein eta gau ta egun eurei begira geratu; aurrak azi ta txitxa-lapurrak leiotik zaindu, gizonak onerako, ta onerako bakarrik, legeak asmatu ebazan. Alkarren ondoan bizi bear izatetik, besterik-ezean, lege orrein izatearen egokitasuna sortu jakon.

Lege guztiak, esakeran eta idazkeran, onak dira edo dirudie; ezingo litzakez bestela erriaren eta muduaren aurrean agertu. Asmoak, lege-egilleen asmoak, ez dira beti orrenbestekoak izaten, eta erabiltera elizen diranean igarten jake. Gure esangura onetarako, legeak bereizteko, era bikoak izendatuko doguz: Oiturazkoak eta erriaren ekintzak eraginda, aurretik idatzi bako lege izatera eldu diranak indartzeko, idazten edo onartzen dan legedia; oitura orreik eta-edo azpiratu diran errien jokaerea aldatzeko asmatzen diran lege barriak.

Gure lege zarrak lenengo mailla orretakoak izan dira beti, eta naitaezean, geuk geure buruan gauz asmakizunaren azpitik darabilgun eginkerea ta jokerea, bide orretan kokatuta daroaguz. Erriak edo onen senak, bere eguneroko ekintzan sortu ebazan, eta artuemon eta bizikereak kutsututa euren itxura berezia ekarren. Geroago lege izatera biurtu ziran, gero gero! Baserritarrak osotu ebezan, gure jakintzaraiño eldu diranak beintzat. Ba-ekien baserritarrak orrenbeste egiten eta geiago be; jakintsuak ziran, eta euren eskubideak zintzuk ziran be ba-ekiezan. Zurrak eta egizaleak; ez da iñoiz eta iñun barriz egin izan euren eguneroko ekintzatik lortu eben legedi orren antzekorik.

Pete. T. Cenarrusa, USA'ko euskal jatorrizko lege-gizonak, an jaio bear izan dau orrenbeste ikasteta ta guri erakusteko; asikera lez berak emon eustazenetik onetxek idatziko dodaz: 1969'ngo *Dagonillaren 12'an, oraintxe urtebetetxo, The Idaho Statesman izparringian, Paul A. Dickson'ek bere lan baten esaten eban au ingalanderaz, John Adams (*1797-1801*) USA'ko Lendakariak, bertako legedia gertatzen zan zirala esan ebana, —A Defense of the Constitution of Governement of the USA— idatzi ebanean: «Orrek (euskotarrak) auzokoak aspalditik errege ta eleiz-gizonen eskuetan euren asmoak itziak ba'daukez be, era garai onek, bere izkuntza zarra, sena, lege, agintza ta oiturak zaindu ditu barrikeri barik, beste Europa'ko edozein laterrik baiño luzaroago».*

Baita aurtengo Urtarrillaren 19'an, Boston'go The Christian Science Monitor'en Jack Waugh'a batuta dekarren au be: «Euskotarrak, k'z, x'z eta z'z betetako ta beste iñorekin zer-ikusirik ez dauan izkuntz orrekin, eta euren erribideko egintzarekin, amar gizaldi atzeragotik gitxienez, eta naita Philadelphia'n emongo Legedia eratu ebenak danori buruan izan ba'eben be, Ameriketako politika erak aukeratzeko, ez dabe iñoz be euren laterri bat izan».

Lege orreik erriak berak sortu ebazan aurretik, oitura utsak zirala esan dogu, baserrian osotuak euren buruaren jaube zirala; geienen oberako ta alperren kalterako; lanetik bizi al izateko ta jauntxo, indarzale, gogo-zuzendari, berba-lapiko ta merkatarien arrapatze, osobatze ta oker-jaubetzari bideak izteko. Ba-ebaz orretarako gure baserritarrak edertasuna, erreztasuna, sena ta zentzuna, ta danorrein gaiñetik erritarrare benetako jaubetza.

Baserriak, urien bultzakadan, indarra galtzean, legegintzarako gaitasuna be galdu dau, Ori, ta gutxi batzuk errezkadan galtzetik, gureari iraunarazteko giltzak kendu dauskuez. Lenago, astamakil eta gezur etozan, bularrak aurrez-aurre, ta or joaten ziran igesi. Orain, urriñetik egiten da gudea, suzkilloz, kaiñoz, egazkiñez... ta ez da izan bardin.

Ez ei-da gure asabea laterri bat sortuteko gai iñoiz izan, ezta bere izakera bakartia ta lan eta jaubetz bideak alkarkonpontzetik urriñagoko batasunik asmatzeko ta onartzeko gai be, ezta nai izan be. Bakoitz bere buruaren ta inguruaren jaun eta jaube, lenengo ta beti, baiña auzokoari laguntzeko ta lapurra ta erbestea etsaia burrukatzeko, ososoan gertu, bere anaiekin bat. Bere nortasunak, lege-gintzarako aukerea izan dabe artean iraun al izan dau, beti indartsu ta beti erabarritzen aldiak eskatzen eban bidetik, eta nortasun orreka euskereak, oiturak, odolak eta erriak be iraun eta iraun gizaldiak zear.

Ez da euskerea galtzen asi, erbestetik etorran bultzakada orregaitik, ezta kultura bideetan murgildu ez zalako be. Bestera bai, euskeraren galpena ta kultura bideetan gora ez astea onetarako garai eldu danez gure baserritarren lege-gintzarako jaubetza galdu dalako izan da. Ez, ez eban euskerak iraun erromatar bultzakada aretan, arein gauza barrien itzak onartzera makurtu gintzazalako -euskaltzain barik atan ta- Etxean sartu ez ziralako baiño, eta eguneroko ekintzeak bear ebazan oitura-legetuak geureenak izaten jarraitu ebelako. Bein ona ezkero asko idatzi daikegu: Gure nortasunetik at, zergaitik onartu genduzan errege ta antzeko zuzendaritzak; zergaitik, ezinbestean, oitura bardin-ezdunekin alkartu; zergaitik ez giñan iñoren lurren jaube egitera burrukatzen joan, ta bai iñolakoak egiten jakin geureari eusteko; zergaitik ez dogu maite, indarrez edo azpikeriz, urkoari gure ziñismena ezartzea; zergaitik... zenbat olako, baiña gaurko au be bai, zergaitik biguntzen dan gizona, millaka urteko erriaren semea, urdailletik, sakeletik, arrokerietik, bildurrez ta, atsekabez ba'da be, geratu jakon apurra, txarra dala jakin arren, aixe be galduko ete-dabe bildurrez.

BEIZTEGI'TAR JON

GAZTE

18 URTEKO ZARRAK?

Barriro betikan-gora ta goitikan-beera gure euskerearen gaietan. Eta, au tamalgarriena, barriro euskaldunak bata-bestearen aurka; baiña guda mak (urteak joanta urteak etorri) garaitzaille bat izan bear dau. Eta, jakiña, euskerearen ugalak, garaitu dauan taldeak artuko ditu.

Askok esango dabe: baiña, gudea ete al da izan?... nortzuk dira aurkariak?... zer jazoko da? Goldera errezak ta erantzun zaillak.

Eta guk gazteok, zer esaten dogu? ...guda etan ba al dogu zer egiñik?... Nik uste dot baietz eta asko gaiñera. Txarrena izango litzake burua ixkurtu eta ezer ez jakin naia. Gure gordaingarri dirrena, euskerea dogu. Ez gure soiñuak, ez gure andi ta itxas basterrak, ez gure dantzak... orrek politak izan arren, leku askotan topatu leitekez, BAINA GURE IZKUNTZA, GUREA BAKARRIK DA!

Eta gure izkuntzak, ordu latzak be ba-ditu; eta oraingoak oso gogorrak dira... Ortik dabiltza batzuk, euskerearen susterrak barriztu nairik. Eta asmo ori oso ona eta txalogarria irudi jat, baiña... zelan egiten dabe barriztasun oi?

Ez gazteok, ori ez da ain erreza. Lurretik susterrak ataratzea ez da gauza zailla. Baiña ongozpidea, barriro suster oiek landatzean, topatuko dozu. Landere orreri ikusiko zaizkio osto barririk? ...emongo ete du lenago bezelako frutua?...

Euskerakaz bardiñ jazoko da nire ustez, eta ialeuteke gure landarea beti-betiko iltea. Euskerak, gauza guztiak bezela, jasoin edo azpi batzuk ditu; eta euskaldun zintzoak gure itzal guztiakaz enartu bear doguz. Oraingo euskal idazle batzuk ez dute ori uste, eta gure izkuntza bide larri ta estuetan jarri naian dabiltza.

Zelan ezetsi oraiñ arte egin dogun euskera? ...zergaitik antxiñako euskaldunak egin eben lan guztia baztertu naia? ...sorbalda gaiñean ete dogu burua? Eta, au bai dala astokeria, euskeraz idazteko beste izkuntzetako itzak ez ba'dozuz erabilten ZARRA ZARA TA LITERATURA ZARREAN ZABILTZ!

Zarrak? ...ez!: Gure Errian be ba-dagoz idazle gazteak baiña euskera garbi zaleak; ikastoletako andereiño batzuk —Aitor'en izkuntza zarra irakasten dabenak— ez dira zarrak; gure errietan egiten dan euskerea ez dago «zarkamentuz» «omelettez» ta «sufrikarioz» betea, eta gazteak be itz egiten dabe... EZ ZARRAK BAKARRIK! Zer uste dozue ba;... euskera gazte bat eukitzeko «melena» edo «mini-shorta» jarri bear jakola?... Ez adizkide, gure izkuntza betikoa da; gure errietan eta urietan ez da prantsezez itz egingo; euskeraz baiño.

Guda, bai guda... eta ankerra benetan. Eta zer egin bear dogu euskaldun gazte zintzook?... ba erantzuna ez dozue oso zailla: DANORI ERAKUTSI ZELAN GURE ERRIAN EZ DOGUZAN 18 URTEKO ZARRAK!

18 urteko zarrak? Ez! Gure euskereak ez ditu ezagutu bere bizitz osoan alde edo tarteak. Danontzat izan da, da eta izango da: bai gazteentzat, bai zaarrentzat. Guda asi da, eta zure izkuntzaren bizitza garrantzi aundiko arazoa dozu. Alde batetik ikasi dogun euskera: betikoa, errikoa, etxekoa... eta bestetik izkuntza berri bat —ez dot esaten euskera berri bat—.

Susterrak barriztu?... bearrezko gauza; eta benetan lan txalogarria.

Baiña euskerearen susterrak barriztuteko EZ DEZAGUN ALDE BATERA UTZI GURE EUSKERA! Etxe barri bat egin dezagun, baiña lengo jasoiñen gaiñean! Eta ori egiten dauana ez da iñoiz zarra izango, gazte bulartsua baiño.

Ta azkenez oar bat danori: EZ DIRA ON ARTZEN ETXEGILLE ZARRAK!

EZKAURIATZA'TAR XABIER

SASI SOZIALISTAK

Munduko erri geienetan lez, gure errietan bere, gazteak eta ain gazte ez diran gizon arduratsuak, gizarte obea lortzeagaz kezkatuta dagoz; beste orrenbeste esan geinke mungitarrok geure gizarte txikiagaz.

Baiña erri baten, eretxi ezbardiñeko gizasemeen artu emonak obetzeko zintzotasuna bear da; zintzotasunik ez ba'dago alperrik gabiltza... Gure errian zintzotasunik bai? Itzketan ba'da ez beintzat.

Ara emen sarri entsun doguna:

«Jaun orrek» edo «besteak» lantegian, nai daben guztia irabazi dau; langilleari ez dautsoe bear dan beste emoten, kapitalista madariketua da... eta gauza orreik esaten dabezanaren aita, beste lantegitxo baten ugazaba da; bestean baiño kondeziño txarragoetan dagoz langilleak eta urte gitxitan aberastu da au bere.

Beste batzuetan entzuten da; Arek edo besteak etxegintzan irabazi daben dirua lapurretea izan da; bizi-leku bakoitza eunetik berreun baiño geiago irabazita saldu dabez eta... langilleak edo baserritar gizajoak izan dira erosleak...

Eta onela berba egiten dozun orrek, pentsatu dozu iñoiz zeure aita kutunak bere etxe mordoa egin dabela?, nai dan guztia irabazita saldu dituala? Berak bere lapurretan egin dabela ori lapurretea ba'da?

Beste batzuk esango dabe: «Arek edo besteak» eskupeko bidez zenbat gura diru irabazi dabe. Lurraren sal-erosketan, bear ez dan lez aberastu dira edo mesedearen ordez, lapurretarako eskubidea izan dabe... eta zure aitak zer?...

Onela berba egiten daben geienak errazoia dekoe, ta goragarriak dira alde batetik; gure errian gauza asko egin dira txarto baiña... nork?, ezbardintasun itzala dago, danon artean obetu bear dogu gure gizartea, baiña zelan?

Kontuz mutillak! Asi gaitezan geure etxetik; gure aitak egindako irabaziak txarto egiñak dirala uste ba'dozu... emon zati on bat beartsueri edo kalteak zuzendu. Zure aitaren lantegian, langilleen bizi bideak obetu! Etxegintzan aitak egindako lapurretak itzuli eta abar.

Noizik bein «peoitzan» lanean ekitea (erriak jakin dagian) edo miñez sozialista agertzea... modatik joandako oitura barregarriak dira. Askea beterik, sabela beroa, sakela beteago ta iñoren teillatura arrika ekitea demagoji utsa deritxot.

Urrengo egunean aitaren «berebil» ederrean barik, goizeko trenean unibersidadera joan...

Igandeetako eskupekoa artu barik, ordez langilleeri, egunean pezeta bana geiago emoteko esan aitari; sozialistak gara ala ez?, ez baiña izenez edo esanez izanez baiño.

Erri obea nai ba'dogu zintzotasunean asi... bestela sasi-soeialistak zarie, nabarmenak eta barregarriak, iru edo lau urterako sozialistak, aitaren diruak artuartekoak.

BIRIKI

(Mungi'ko «Concordia»tik artua).

ONBEARREZ EDO

Exeri-lekuak banatuta an eta emen; leku onenean altxia, telebisioa; mostradore atzean edariak alkar jotzen, eta zerbitzari bezela, bi neska.

Gabeko amarretan illun egoten da, eta bero egin arren egun artan, utsa arkitzen zan taberna ura. Gaizki esan det; txoko batean, gizon bat arkitzen da, bere burua erorita dauka mai gaiñean. Moskortua dago, erdi kantari, erdi bakarrizketan.

Bereala sartzen dira gazte batzuk, gitarra eskuan dutelarik, kantari. Mendigoizaleak, alaiak, parra eta algara egiten dute. Zazpi txikito eskatzen dituzte berentzako, eta beste bat moskarrentzako, len gutxi edana noski. Bai ba-dakit, mesede bat egitearren... Orrela danak kontentu eta alai.

Moskorra zigarrua erre naiean dabil, eta gazte batek ikusirik ezin duela piztu, zigarroari su ematen alegintzen da. Moskorrak apika eskertuko dio. Ez daki noski gizajoak, zertan ari den, ez da ez bere buruaren jabe.

Gazteak, modan dagon abesti protesta oietako bat abestu egiten dute; ederki, duo egiñaz eta guzti, moskorrak txalo egiten asten danean, zigarroa lurrera eroritzen zaio. Bereala esku umil eta leialak, lurretik mikrobioz jositako zigarroa moskorraren aboan ipintzen du; gazteari ori gertatu ba'litzaio, anka azpian zapalduko zun.

Bost abesti amaitu ondoren eta basoetako ardoa ustu gabetanik, alde egiten dute. Bitartean moskorra, ardoa bukatzeko beldurrakin, tantoko, tantoka, gustoa nundik artu ez dakiala lo artzen du, esku batean basoa eta aboan zigarroa ditularik.

Gazteen soiñuak eta beren otsak urrutiratzen zijoazten bitartean, tabernariak moskorra ematu, zako zar baten antzera artu eta bultzada bat emanik, kanpora botatzen du. Gazteak maindira zurien azpian egiten dute lo. Moskorra barriz, ibai ertzean, lurrean etzanda lotan galdurik dago.

Orain dana ixillik arkitzen da, zerua illuntzen ari da, laister eudia egingo du. Urrutian, zakur baten karraxia entzuten da.

RAMON ZAPIRAIN

ERAGILLE TA EGILLE

Dan-izatearen edo izan-diranaren askotza onen aurrean, ikusi barik begira diran geldoak lez agertzen gara, ta begitu be begiratzen ete- dogun ba ete-dakigu!

Gure izate au, geurea ez doguna, iñork ezarrita daroagu-ta, or doakigu bere zera igarri barik, geuk geuretik bizi izan barik, dan-izatearen moltzo orren eragiñaz, ez dautsagu geure nortasuneko erantzunik emon al-izaten-eta. Bestera, onartzen ez dogun doiñu baten bultzara dantzan dagigu; geldikeriaren geldikeriz geure bizitzearen senak be eskutik iges egin dausku.

Gaurko gizartean, inguruari erantzuteko almena, izadi guztiak izaten dabena, makalduta, garrantzia galduta aurkitzen dogu gure lateratutako gizarte onetan; gizonak berak be, ta ez beeragokoak bakarrik, erantzunik emoten ez dakiala; beeragoko pisti geienei inguruari erantzuteko ebezan aukera guztiak kendu dautseguz, gizonari be bai azkenean. Ez, ez dago emen erantzunik; ingurua aunditu jaku, orrenbestekorik esan ba'daikegu, ta gure erantzunaren ataditik barrura be sartu da, arrezkero guk erantzun bear gendukena berak gertatuta emoten dausku, ta azkatasuna geuregan izateko aukerarik be ez dausku itzi. Aukerabideak, autamenak ezebeztuak izan dira, ta ortatik, gizasemea bera be menperatua ez-eze, baita moltzo puztukor baten ERABATERATUA.

Erabateratze au moltzoan, norberatasunean «utsa» izatea lez dala, ez dator berezbereztik, ba-ditu bere bultzagaiak, bere ondorenak erakarten. Ara politikan gorengo diran antolapenetan dabillena: Erri baten, erri bat baiño geiagoen izakera zuzenlariengana be eldu da geratu-bear au, ta orretan ari diranak be nortasunik barik geratu dira; ardura berezi batzuk daragie, ta ardura orreik laterri bakoitzeko izatearen lenengo maillan dagozanena izaten da.

Agintza-idarra eskuan dabena, bere onerako jokatzera jartzen da, ta orrenbeste lortu al-izaten dau, ta ekintza orretatik moltzokeria dator, ta bakoitzaren izatea EGIN-ALIZATEA ondatu, ez litzake ba eskubide au dan-izatearen aurrerabideari eusteko egoki izango.

Orra ba zertzuk ditugun bear-bearrezkoak: ikusten alegintzea lenengo, ondo ezagutu al dagigun; neurriak aurkitu ta gure arazoak zeintzuk diran erabagi gero, ta orretarako indarrak alkartu, ta bide guztiak, naita txikerrenak izan, ustu arte erabilli.

Lentxoago, ta guretzako aspalditxo esan bear, luzetxo izaten doa-ta, erabaki bat lortzeko, ain bearrezkoa dogun indar-alkartzea eskatzen, dei batzuk entzun ziran, ta orretarako alde askotatik letorkezan jakintzak alkartzea nai eben. Antze, izkuntza... oneik, indar-alkartzerako bideak dira; jakintzea erriratzetik, au da, erriarentzat egokia egitetik. Erriarengana joan egin bear da; neke aundi barik lortu al izan bear dau; izparringi bat, esate baterako, zubia dogu, erriakin, irakurleakin alkar-izketan jarduteko.

Onezkero, ara emen izadi-tarteko edo gizonaren tarteko egiten daben orrei deia, ta ez erdeiñuz, bene-benetan baiño: Orren urri doguzan izpar-bideetan lankide izan zaite; itzi baztarrera taldekerien ergelkeriak; beti-beti gogoratu bear-bearrezkoa dogula, ta arin be arin, indarrak alkartzea. Iritzi utsak emoten, auzoa baltziten bakarrik dakiana ta orretan geratzen dan artean, ezezkor uts-utsa da. Ekintzara ez doan neurrian, ondo ulertu egidazue, ondo aztertu itzok, ezer ez egitearen estalki bat jasoten diardu bere buruarentzat. Joko orretan gordetzen diranentzat da nik esan dodan moltzoko «erabateratu» a, naita onetan edo orretan ikasi-ikasiak izan.

AZKARRETAZABAL'TAR JON

Boutique

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tendería, 15 eta 16

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

KONTU KONTARI

ZAR-JAKINGARRIAK

Gaztetxoak giñalarik, erriaren aboan borbor ibilten zan arazotxo batetzaz jardun bear naz gaur. Edestiaren bitartez, danok dakizue, Antonio Canovas del Castillo, joan mendearen azkenetan, España'ko gobernuaren buru izan zana, Arrasate'n garbitu ebela.

Miguel Angiolillo italiar anarkisteak erail eban Santa Ageda deritxoen ur-etxeko baratzarte baten. Erailtzaillea, bertan lotu zan, ez eban igesik egin. Atxillotu ta Bergara'ko epai-etxera eroan eben. Eta emen urkamendira epaitu.

Jazokun ori, 1897'garren urteko dagonillaren 8'an izan zan; ain justu be, Bilbo'ko Euzkeldun Batzokia itxi eben egun berberean. Ba-dakit, itxikunde orrek ez ebala zer ikusirik izan, eriotza orrekin. Eta aitatu ba'dot egun berean jazukun entzutetsu biok gertau ziralako aitatu dot.

Angiolillo, Bergara'ko espetxean urkatu eben, iraillaren 20'an. Jazokun bata ta bai bestea, asikeran esan dodanez, edozeiñak dakiazanak dira, kondairaren bitartez. Baiña... Canovas del Castillo erail eban anarkistearen urkamendia egin eban arotzaren izena, ba-al dakizu?

Nik bai. Urkamendi aura egin ebanaren oiñordeko batek, loba batek kontau eustan. Gaur be, aren loba onegaz egunero egoten naz. Esan bearrik ez da, nire lagunaren osabeak, arazo orretan, bere arotz-bizibideko lana besterik ez ebala egin, arasa bat egitea agindu izan ba'leutse lez.

Urkamendi aura, oroitz-toki edo museo batean erakutsi al ba'lei, ez dozue uste, ikus-mira izango litzakela? Baiña... edestiko urkamendi ori, nun ete dago? Orixe da nik ez dakidana. Luzaroan egin ebanaren etxeko ganbaran egon zala, ori be ba-dakit, nere lagunak esanik. Egun batez, bilbotar jaun bati saldu eutsola, ori be jakitun naz, eta erosi ebanaren izen-abizenak be, ba-dakidaz. Au, aspaldi il zan.

Zer egin ete eban tramankulu orregaz? Gorde? Erre? Erretzekotan... ez ebala erosiko, nik uste. Eroslearen senditartekoak, onetzaz, ezer ete dakie? Jakingarri izango litzakela, ez deritxazue? Meresi ete dau arazo onek, azterketa egitea?

ABELETXE

ALKAR-IZKETAN VIII

GIZONAREN ESKUBIDEAK

—I, Manu, ez az gomutatzen igaroko astean Eleizak eta ONU'k be aintzat artzen yoazan «Gizonaren eskubideak» zirala-ta, zerbait esan gurea agertu eindula?

—Bai, gomutatzen nok, baiña bakik, berbeak berbea ekarten yok eta, gai orretzaz yardun aldia egitea urrengorako gelditu zoan.

—Alantxe dok. Eta gogoko ba'yata gaurko alkar-izketarako gaitzat artu geinkek. Ezteritxok?

—Pozik be bai. Gizonaren duintasuna ta eskubideak mundu guztiak agotan yarabizek eta ondo etorriko litzakek, gauzak garbi yakiteko gogo bizia yaukat eta.

—Asmo orretakoa nok neu be. Eta gaya garrantzitsua dokalako, gauzak zeatz yakiteko neure lagun abade bategana yo ñoan, eta berak emon yaustan, ondo irakurteko esanaz, XXIII Yon Aita Santu ospetsuak il baiño ille bat lenago argitaldu yoan «Pacem in Terris» (Bakea Lurraldeetan) deritxon Enziklika gomutagarria. Antxe yagozak gauzak garbi eta neurerik ez doat ezer esango. Bertan ikusiko dozak argi ta garbi azalduta gizonaren duintasun eta eskubideen oiñarria. Lenen gizona bere antz eta irudira, adimen eta aukeramen-deun Yaungoikoak egin yoalako eta orrez gaiñera Bere graziz Yaungoikoaren seme ta betiko zorionaren yaubegei egiten doalako.

—I baiña, gizonaren eskubideak aitatu doazanean eskubide orrei dagokiezan «eginbearrak» be aitatu bear einduzak.

—Yakiña, ori bebai, «eskubide» ta «eginbearrak» bikiak dozak eta batera ibilten dozak, naiz ta sarritan «eskubideak» bakarrik aitatu.

—Ori egiten yabenak ez yok zintzo yokatuten, «eginbearrak» alde batera itxiten yoazanak «eskubiderik» ez yok aitatu bear-eta.

—Ba nik olango asko ezagutzen yoazat, eta nire ustez ortxe yagok gaurko gaitz askoren zuztraya.

—Orixe esango ñeukek neuk be. Izan be, eskubide-eginbearrok zustraituta yagozalako, danentzakoak, ausi-eziñak eta aintzat artu barik itxi ezin leikezenak dozak.

—Orretarako gizonak diran gizonak borondate onekoak izan bear.

—Ori esan bearrik be ez yagok. Aita Santuak berak asieran argi yiñok, idazki ori borondate oneko gizon guztiei zuzentzean.

—Izan be, borondate ona ez yaukonagaz urrin ezin yoan leitekek.

—Ba, olango asko ikusten dok, mutil. Ez az konturatu Idazki ori guztiak txaloka artu ebela, gero polito-polito «ixiltasunaz» baztertu ta lurperatzeko...

—Borondate ona txaloetan baiño egiteetan obeto agertzen dok... Txaloak itxureagatik be yo leikezak eta olango larregi yabik munduan.


—Alan yabik yabillen lez.

—Bai, eta alan ibilliko dok esagille ospetsuen batek «borondate onekoak» ugaritzeko «inyeziñoen» bat asmatzen ezpayok.

—Dana dala, gu biok borondate onekoak izaten ba'gozak, bi geiago izangozak munduan.

—Alatxe dok. Baiña yardun au luzetuaz yoak eta urrengoan yarratu bearko yautsoguk.

URIGOITIA



INSIGNIS LERRAK NEURTZEN

Metro bat luze, zabal ta sakon dan kaxan sartu leikezan apea pilloari egur-neurkin edo *Estereoa* deritxo.

ESTEREO NEURRIA

Apeak bardin eta borobillak diranean estereoaren neurria auxe da: 0,785 m/³; beraz m/³'ak $\frac{1}{0{,}785}$ = 1,274 estereo eukiko dauz.

INSIGNIS PIÑUAREN ESTEREOA

Alan ba, apeak borobillak eta luzera bardiñekoak izan arren, danean lodiera bardiña ez dabe izaten, eta orduan utsune geyago gelditzen da, eta estereoaren pilloa gitxi gora bera: 0,769 m/³'ra jatsiten da.

Onez ganera apeak luzera guztian borobil bardiña ez dabe eukiten, ertz batetik bestera meagotuez joaten diralako, estereoaren bitarteak euneko 1,3 geyagotuten dira, eta metro biko apeetan euneko iruan.

Baita gogoan euki bear dira lakatzak eta oker-uneak.

Beti bardin ez diran zeaztasunok gogoan artzen ba'doguz, bien bitarteko neurri au emon daikegu.

Estereoaren pilloa = 0,746 m/³ au da:

luze, zabal ta sakon dan metro bat $\frac{1}{0{,}746}$ = 1,341 estereo. Au, metro bat luze daben apeentzat.

Apeak metro bi ala metro bi ta erdikoak, bitarteko utsuneak andiagoak diralako pilloak txikiago urtetan dau.

Danentzako neuri bat ezin izentatu lei, orretarako zelango neurrikoak diran begiratu bear (metro bi ala metro bi ta erdikoak), baita piñudia sarratua dan ala ez, eta egin diran iñaustear be bai.

Ontzat emon geinken estereoa ba auxe izan leiteke: 0,746'tik 0,70'rakoa.

Bear dan lez, ondo ipiñitako apea pillo baten sartzen diran estereoak zenbat diran yakiteko naikoa da auxe: Apea pilloaren luzeerea, bere zabalera ta sakonereagaz zenbakoiztu edo multiplikatzea.

ESTEREOAREN ASTUNTASUNA

Ori jakiteko ezea ala legorrari begiratu bear.

Mendi aizeetan legortutako m/³ egurrek, 650'tik 700 kilo inguru izaten dauz, beraz, estereo bakotxak 500 kilo.

Egitez esan daikegu metroko tonelada baten, apea-estereo bi sartzen dirala.

ESTEREO BATEN SARTZEN DIRAN APEAK

Metro bi ta erdiko apeak ebagiten ba'dira, me aldeko lodierea gogoan euki bear da.

Punta meeneko ontzak (Ontza bat = 2,34 cm.)	Zenbat apea	Apeen luzera metrotan
2'	60	150 metro
3'	40	100 »
4'	28	70 »
5'	20	50 »
6'	15	37 »
7'	11	26 »

Metro luzera bakotxa gure mendietan landutea kostetan dana, alde batetik bestera eroatea, papelerak ordainduten dabena, naiz mine, serra-olak eta errotak eta abar ordainduten dabena gogoan artu ezkero, baso-yaubeak erabagi yakingarriak atera daikeez.

EGIZKO PILLOA

Gure egurra artzen daben Papel-oletan batez be, artzen dabezan apeak metro kubikoak (m/3) ordaintzeko oiturea sartuez doa.

Orretarako kamio bat elduten danean, egurrok pixetuta gero, bertatik erakuski edo «muestra» bat artzen dabe, ta pixetuta gero urez beteko ontzi baten sartzen dabe, eta ontzitik ganezka ateratzen dan ura neurtuaz, jakiten dabe muestrearen egizko pilloa zein dan.

«Regla de tres» deritxon zenbakuntza bidez, jakiten dabe kamioyan ekarri dabezan apeen egizko pilloa zein dan.

Metro irukoiztu edo kubikoaren sal-neurria emoten ba'dauskue, estereoak zenbat ballo daben yakiteko, len esan dogunez, naiko da estereoa 0,75 ala 0,70'gaz zenbakoiztu edo multipliketea.

EGIZKO PILLOA TA AZALAGAZKOA

Insignis piñuaren asiera eta obariagazko «tabla» guztietan, irukoitz edo kubiku deritxon metroetan zugatz osoa sartzen da, zugatzaren goi-bera guztia azal ta guzti.

Azal ta puntea kentzeaz batez beste euneko 15'tik 20'ra galtzen da.

Au da: «tablak» esaten dabenean piñu batek metro kubiku edo irukoitza dabela, puntea ta kentzen yakozanean 0,85 ala 0,80'ra yatsiten da.

(8'gn orrialdera)

AUR - BARATZAK

Onelako ikastola batera joaten ba'zara, ta lau urtetik beerako aurrak ba'dira ikasle, erakusketarako aurrerapenak eskatuta, ikasten barik jolasean aurkituko dozuz, edo orrenbeste irudituko jatzu beintzat. Ez jakue zenbaketarik ez idazketarik ez beste jakintza sakon-atadirik irakatsiko; ez ei-dira orretarako gai-ta.

Orretara, suizar jakitun bati jarraitzen eldu giñan. Au, Jean Piageai irakaslea izan da, ta aurren eziketeak kezkatuta, azterketa batzuk egin ebazan, ta bere iritxiz sasoi orretako umeak ez ei-dira nor gauzen aldea ezagutzeko. Adibidez: Gizaseme azi bati esaten ba'dautsagu makilla gorri bat beste urdiña baiño luzeago dala ta, gero, arutzagoko makilla ori a gorri ori baiño be aundiagoa dala, bereala asmatuko ei-dau iru makillen arteko aldea, biñaka galdetzean be; ta suizarrak iñoanez aur txikiak sarriegi uts egiten ei-dabe, azterketa-asmakizun egokia lortu barik dabelako.

Orain, Peter Bryan irakasle britanikoak, amerikar sikologo bat lagun dabela, azterketa sakonagoak egin dauz ume askoren artean eta onenbestera eldu; lau urteko aurrak sei urtekoak daben aiña gogoz-bereizte gaitasuna dabela, naiz erakutsiak erraz aaztu, ez baiña gai ez dalako, barriz eta barriz aztertzetik lortu daikena ez jakolako bear aiña aldiz (edo azalegitik) azalizen. Bestela, besteak aiña asmatuko leu; ta gogozbereizte ori jaiotzatikoa ei dau gizasemeak.

Gu, ez jakin utsak izanik, gai oneitan beintzat, entzun dogun ori entzun ondoren, argitasun aundi barik geratu gara; orrela izan daikelakoan-edo. Ta ez gara, jakin-ezak daroan lotsagabekeriari oratuta, gure aldetik ezer esaten asteko asmoan. Orretan dabiltzan jakitunak baiña, Bryan jaunaren azterketa orreitatik aldakuntza aundiak etorriko diralakoan dagoz, aur txikien eziketa jokaeran. Ta, gure artean orretan dabiltzaneri, orrenbeste jakin-arazi nai geunskioe.

AIXOLA

NUNDIK NORAKOA X

AGUR, BAIÑA EZ BETIKO

Iru urte egin genduzan batzuek Arteaga'n. Nere amabi urtetatik, amabostetarairo. Andik aurrera banandu egin giñan apur baterako, Naiko lekurik ez egoala-ta, laugarren ikastaroa egiten batzuk Gazteiz'era joan giñan; gure kurtsoko arabarrak eta zazpi bizkaitar.

Agur Arteaga'ko lur maitea. Agur Arratia'ko alderdi zoragarria. Antxe edan genduan Izaro ederraren guna. Antxe etxekotu giñan euskaldun jendeagaz eta bere izkuntzeagaz. An eta emen euskerea entzun, etxe-barruan eta kanpoan. Santa Ageda bezperan, gau batean, erriko mutillak etorri ziran beren abestiekin gure leiopera. Nik ulertu ez euren izketea; baiña, bai gogoeta ederrak sortu nere barruan! Besteetan, ikas-tokian gengozala, baserritarren idi-burdiak igarotzen ziran ur-urretik, ardatza irrintzika, bedarrez zamatuta, gure irudimena urrunera eroanaz. Orain, itaurrekoaren aita gogorrak gure belarrietarairo; ondoan, mendiik etozan mandoen zarata soiñutsua. Egur-ikatza errira salgai ekarren. Batean lagun zintzoen adiskidetasuna, bestean nagusi batzuen leialtasuna. Inguru guztietatik maitea ta ederra.

Baiña lekurik ez egoala-ta, joan giñan Gazteiz'era urrengo ikastaroan, gorago esan ditudanak.

Mendi egalean, bear gogorra egin genduan gure eskuz, mendia zelaitzen, basket-ballean olgeta gero. Edo-ta aitxurketan ari oi giñan ez dakit zer nolako lana egin al izateko. Ta gure barruan ere lan gogorra, andi batzuk zapaltzeko edo sakonguna batzuk leuntzeko. Ikasgaietan ere sekulako aurrerakada egin genduan. Batez ere nik latiñez. Oso gogoko ta atsegin izan neban izkuntza au. Irugarren ikastaroan naikoa irakatsi euskuen tu arako «pensum» a buruan sartu ere bai. Baiña, egizue orduko batean legez: «Conticuere omnes intentique ora tenebant» (Aen. Birg.).

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

AUR - IRAKASKETEA

Ez da au izango aur-irakaskintzagan lenengo idazkia, baiña nere oldozmen batzuk argitaratu nai neukez.

Aurrak, jaiotzatik ara ikasten asten dira; noiz sartzen gara gu aurrak noiztik eta zer ikasten duten, naizta geu be aurrak izanak izan? Ze ikaspide iminten dautsegu? Egiten ete-doguz geure gauzak bear diran bezela, ala aurrak dirala uste izan eta ulertuko ez dabela zinisturik, garbi ta zuzen egin bearrean, atzekoz aurrera itz egin edo erabitara alderazi litekezan itzak erabilten doguz? «Ez dagian eraspen gaiztorik ikasi; ez dagian jokera txarrik artu... ez dagian!

Aurra, katanarra aiñako asten danerako, guk uste dogun baiño zurragoa dogu, andik aurrera aintzat artu bear da. Ikasi nairik dan ezkero, bai ta ezer obeagorik bera baiño geiago danagandik ikastea baiño? Baiña edertasuna ezik beste guztia ikasten danez, kontuz, esakera ta igikun guztiak ikasten asten da aurra aro orretan. Zenbat, iñoiz esan bear ez litzakezan itz esaten diran umea jolasean dagola uste dalarik... baiña, ez, zur dago geienetan: «Aurraren zentzuna etxean entzuna!»

Gero, Ikastolan aurkitzen diranean izaten dira gora-berak; angо ikaskizunak etxean ikasitakoakin bat ez diranean. Ze ondore aterako dau gazte aldira eltzean ta norberaren gogoko irudimenaren menpean jartzen diranean?

Etxean ikasitakoen artean gaitza izaten da gazte bekoki-illun naikeridunik billatzea, bestelaz, arpegi garbi, begi zoli argi ta irriparretsuak ikusten dira. Baiña, tamalez, begirakun biurrira aldatzen dira, atzipeturik edo galenduta. Lenengotan, sari-itxaropen gabe egingo leukeezan gauzak, gero ez, ta ori, bere baimen, galdekizun eta onespen gabe egiñarazi dautselako sortzen jake.

Lundian aberea baiño zerbait geiago dala adipetuten dabenean, aldatze ori datorkio.


Nork darama orren lepalpena?

EGILLETA

ITZ - EUNDUAK

(XV)

Etxebarria'tar Juan Anjel



AGERBIDEA

ZEARRETARA. — A: Izenordea.—B: Atxur mueta bat.—D: Bira egiñaz.—E: Loratan egon; Bokal.—G: Galdu; Bokalak; Lokarri.—I: Naparroako; Emaitza.—J: Urteen sasoia (a. a.); Zizpuru.—K: Bat (itz zarra); Oituraz ari; Ixillik.—L: Bokal; Euskal abizena.—M: Izena.—N: Ortze.—O: Asperen itza.

GOITIK BERA. — 1: Leku aretan (a. a.).—2: Gain.—3: Sukaldeko ontzi.—4: Aldikada; Konsonante.—5: Kilkerraren otsa; Artu (a. a.); Berbaz.—6: Bizkai'ko erna; Euskal abizena.—7: Ezetza emon; Antxiñako Hispania.—8: Ukapen; Aditzondo; Piztien deadarra.—9: Bokal; Emoten dauana.—10: Zabal.—11: Eriotza.—12: Neu (a. a.).

XIV'aren agerpenak:

Zearretara = Bi.—Guri.—Galazo.—Zoratu; I.—Biz; rO; Upo.—Sator; Ebagi.—Azoka; Ziria.—Iri; Mu; Dra.—I; Gorbea.—Sardea.—Igar.—Ai.

Goitik bera = Sa.—Bazi.—Zitori.—Gozoki; S.—Gar; rA; Gai.—Bular; Morga.—Irato; Urdai.—Izu; Ez; Ber.—O; Ubidea.—Iparra. Ogia.—Ia.

IRLANDA MUNDUAREN IXILPEAN

Englandarren errege izan zan Enrike VIII, eten zuan irlandarren azkatasun abotsa 1542 garren urtean auen erregetza arturik. Indarrez erregetu, noski, oitura zan bezela antziña artan. Eta aitzaki politaz erregetu ere, oi bezela, aberri menperatzaille ekintz garbia zana, erlijio bearkizun baten jantziaz estalirik.

Garai artan aberri asko menperatuak izan ziran erlijio aitzakiaz. Mahomatarrak eta kristauak erabilitako aitzakia, berea egin zuten engladar protestanteak. Enrike VIII Erroma'tik banandurik, erlijio berri baten buru-nagusi egin zan, eta erlijioa ezezik erri agintea ere ezarri zien noruegatarren eta danesen morrointzapea ezagutu zuten irlandar zoritxarrekoei.

Urteak pilloka joan dira iges, eta joan ziran ere menperatzailleak auek nagusitutako lurreetatik, ain zuzen beartu nai izan zioten erlijioa, menperatuak beretzat artu gaberik. Indarra bai-da egokitasun gutxienik duan arrazoia ideiak iñori beartzeko. Irlanda'k ere ez zuan beartutako erlijiorik ar. Baiñan erlijio-gudaren sustraia etorkizunak ezereztu ba'du, jarraitzen du, ordea, Irlanda'n beiñe pein, guda aren sustrai edo zio egitazkoa: erri-menpekeria.

Geroztik, irlandarren abotsa zuzentasunaren eske altxa dana aldioro, odoletan eta negarretan itoa izandu da. Labur-zurrian bederik eman ditzagun argitasun batzuek.

Eten gabeko burrukak 1598'gnean ekarriko zuan garaitza irlandarrentzat. O'Neal buruzagi zutela Blackwater'en lortua. Iru urtez geroago pakea ere lortu zuan buruzagi berak. Baiñan labur, bada bi urtez geroago,Eguberri bezperan, zamalda izugarria eman zioten englandarrek ete beiñere baiño menperatuagoak gelditu irlandarrak. Seireun fanega lur aldatu zituzten jabez menperatzaileak.

Une onetatik jokabide ori eraman dute. Irlandarrak altxatzen ziran bakoitzean irlandar jabei ken ta Irlandaratu nai zuten englandarrei eman. Beingo batez, eta Parlamentuaren erabakiaz, bi milloi fanegaren jabetza trukatu.

Une latzak 1649'gnean Cromwell biotzgabe batek amabi milla gudariekin berealdiko sarraskia egin zuan. Gudan eta zigorrez illak, eta gaixorik eta goserik milloi erdi bat. Eun milla igesegiñak edo bidalitakoak. Gaiñerantzeko ea geienak beren aberastasunik gabe gelditu ziran, edo latz pobretuak. Au izango zan ezagutu duten zigorrik latzena.

Alazere, Erindarra ez egon makurtzeko. Gizon goragarriak sortzen dira, Cork uriko alkatearen antzekoak. Eta 1921 garreneko Agorrilla'n, Irlanda'k bere zati baten autonomia ezagutzen du. Oiñarri sendoa egiña dute, eta 1949'gnko. Jorraolla'k 18'gnean, erabateko azkatasuna. Baiñan beste zatia, Ulster, or gelditzen da azkatasun ezaren gau ixillean...

Gaur-eguneko ixkanbillen berri, guztiok dakizute zerbait. Irlanda zatia dan Ulster'ek ere azke izan nai du. Ortik odola eta eriotza, egunero. Eta mundua ixilik ezer gertatuko ez ba'litz bezela.

Ixilik, edo itz-bakan, Eliza. Zergatik? Etxe alde jokatzea dala, esango dutelako? Alako gogo berezia bai-bai-dute batzuek erlijio burruka dala azaltzen, menperatu eta menperatzaille arteko burruka danean.

Ixilik USA, naiz eta irlandar anitz bertan bizi.

Ixilik URSS eta komunistak, batek irabazi edo besteak irabazi zirrikuturik ez dutelako arkitzen bere agintaritza sartzeko.

Ixilik mundu guztiko pakezale amorratuak nagusiaren konsignak gabe.

Ixilik Euskal-Erriko «justizialistak», ain zale diranak Korea, Vietnam eta abar aitatzen, goragoko norbaiti jokoa egiñaz. Katolikotasuna iraultzarako galerazpen bat dala esan dutelako eta orain lotsaturik daudelako?

Ixilik gaztedia melenapetan, eta zaarrek ere sukalde bazterrean.

Egia ere, ixilduta gelditu dirala bein edo bein irlandarrak.

Baiñan zuzentza beti eta noiz-nai da zuzentza. Irlanda da Ulster'en ama. Eta amaren billa dabiltz. Ez da erlijoi-guda naiz. egokitu menperatuak katoliko, eta protestanteak englandarrak. Memperatu eta menperatzaillen burruka da. Inglesak eta irlandarrena. Azkatasunaren aldeko burruka, Aberriaz gaiñera gizatasun eskubideak kendu dizkietelako. Burrukan, egunero norbait iltzen da. Eta norbait zerbait da munduko edozein bazterrean...

Orregatik, aitatu ixiltasun onetan, euskaldun baten abots sotilla entzutea nai det. Igesketa lotsagarri bat da esatea, «garai auetan erlijio-guda bat sortu, alaijaña». Beldurtien igesketa englandar menperatzaillea irabazle gertatu dedin.

«UXOLA»

EUSKALDUNENTZARO IKATAROA

Urrillaren 7'an asita, 22 eguneko ikastaroa izango da (Gabonak arte), astearte ta ostiraletan, Deusto'ko Ikastola Nagusian, angо Euskal Kultur Mintegiak eratuta.

Ordua, arratseko 7 t'erdietan izango da. Ordain-saria, 300 lauerleko.

Ikastaro au euskeraz dakienentzat eratuko da, ta elburuak oneik izango dira:

1.—Ikasleak, irakurketea ta idazketea ondo menderatzea.

2.—Euskal eliztia edo gramatikearen asigaiak, jardun biziaren jardunez, ikasleari emotea ta adierazotea.

3.—Ikaslea, itz eta esaera jator ugariagoz jaberaztea.

4.—Euskerearen egitamuak eta itzulpenetako lenengo urratsak azaltzea.

Argitasun geiagorako, ona idatzi daikezue:

EUSKAL KULTUR MINTEGIA

Universidad de Deusto

Apartado 1, BILBAO


Oarra: Emen goian jarri dogun antzeko agiri bat artu dogu AGUR'en, argitaltzeko eskariagaz. Ta aor bera, naizta guk «h» guztiak kendu izan eurak bialdu dauskuen idatzitik. Orregaitik, zalantzean geratu gara, zein euskera, euskera bat baiño geiagorik ba'da, erabilliko ete-daben ikastaro orretan. Ori be esan bear litzakela guk uste.

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

ERRIOJA'KO GOI-ERRIA

Urtero lez udaldian, Errioja aldean aste pare bat igarotzea pozgarri izaten yat. Aspaldi baten euskal erri izan ziran alderdietan batez bere, oraindiñokarren euskal kutsua or ta emen sakabanaturiko ango berein izen eta tokietan dakusgulako ain zuzen.

AGUR'ekoen aolkua bide yatala onetzaz zertxobait bereala esatera noatzue. Geien bat Ezkarai ta bere ingurumarietako errizkak, euskal-izenezko mendi gaillurrez inguraturikoak eurak begiztatu oi ditut. Izen polit oneik nunnai Ezkarai'ko erriaren baranoan kokaturiko erreka, aitz-zulo, muiño, xirripa ta iturburuetan aurkitu leikez alegia. Toki zoragarri oneik, gure asabeen izkuntz zarrean alaikiro dirauskuela esan be, ames dagit: «...etorri zaiteze noizean bein gu ikertzera, zuen errialdeko zatitxo bat izan giñanez, gure aize garbi osasungarriak ta giro ozkirriak oparo eskeiñi gura dautsueguz-ta». Ta olan da izan bere, ainbat eta ainbat Giputz eta Bizkaitar euskaldun an lenengoz ezagutu oi gara.


ARRUPIA
SACASTRO
G. ARAY
ANGUIZA
EZCARAY
ARTICORANA
LA SUTA
SOBRON
VALGAÑON
TRES FUENTES
MENGAÑA
LA CULTA
MENDEAL
ALTUZARRA
POSADAS
GALARCIA
GASTANZALAYA
AMARULLA
CERRO SAN LORENZO
ARGUEÑA
BAGOLTRUCIA
MENEGUCHIA
ORTUZAR
ARRUBIARTIA
ALCAURA
GUIZINDORTA
MOSQUINZULAYA
CALL ESPELZIA
CALL ARGUIBIA
CALL NECULA
EL REPALLO
RIO RECILLA
RIO RASILLA
DARUELA
LLUEZA
CALL MACURLIMIA
ARRAZARTA
ARRAZARRA
POZO NEGRO
TOLOBARZA
ZARZUBIA
ERIZOLA
LAZA
SAGARRAYA
ESPALDIA
QUEZPURA
ANSOYA
SALCE
ARAMBURA
ZALAMEA
ZALAUNA
ZALACULA
ZALATEGUIA
ARRACHINA
ARZOBIA
ACAIZANEA
ACECOYA
ZALAYA
PICHICUENA
TELEGUTIA
TORCECOLATO
RECICOLLA
ARTECOLATO
ZELETURRIA
ZELEATURRIA
ZERRALDEA
ESPOROSTIA
LONTURA
ORZOCOLALO
ARANZANDIA
SALBURA
CHILLARRI
GUILLICERRA
LA CUÑA
GOROSTIA
CAPARA
LERUN
EMBULLA
TURRAGUAS
CALL ARABIETA
CALL GALATIA
CALL GUILLICERRA
CALL BENEGUERRA
CALL BENEGUERA
CALL NESTAZA
CALL PARTICOLATO
CALL ESCOLOCARZA
CALL ARTAZA
CALL GUENEZULA
CALL ZELAYA
CALL ARTECOLATO
CALL ESPOROSTIA
CALL ARTECOLATO
CALL ESPELZIA
CALL NECULA
CALL MACURLIMIA
CALL CERMONAL
CALL SANTELARIA
CALL PARTORRA
CALL INGUELEZPURA
CALL ARRAZARTA
CALL ARRAZARRA
CALL TOLOBARZA
CALL ZARZUBIA
CALL ERIZOLA
CALL LAZA
CALL SAGARRAYA
CALL ESPALDIA
CALL QUEZPURA
CALL ANSOYA
CALL SALCE
CALL ARAMBURA
CALL ZALAMEA
CALL ZALAUNA
CALL ZALACULA
CALL ZALATEGUIA
CALL ARRACHINA
CALL ARZOBIA
CALL ACAIZANEA
CALL ACECOYA
CALL ZALAYA
CALL PICHICUENA
CALL TELEGUTIA
CALL TORCECOLATO
CALL RECICOLLA
CALL ARTECOLATO
CALL ZELETURRIA
CALL ZELEATURRIA
CALL ZERRALDEA
CALL ESPOROSTIA
CALL LONTURA
CALL ORZOCOLALO
CALL ARANZANDIA
CALL SALBURA
CALL CHILLARRI
CALL GUILLICERRA
CALL LA CUÑA
CALL GOROSTIA
CALL CAPARA
CALL LERUN
CALL EMBULLA
CALL

Basauri

GERO ARTE

Igaro dan Garilleko 25'gnean, zori-txarreko ezbear baten ezbearrez, Araba'ko Berguenda'n, Olabarrieta ta Larrea'tar Joseba-Andoni, 29 urteko mutil gordin euskaltzalea il zan. Il eta bigarren egunean, bere animaren aldezko illetak izan ziran erri ontako Mikel Deunaren antxiñako txadonean; maitasunik andienagaz erritza ikusgarria bertaratu zan. Illeten amaikeran, Agur Jaunak abesti goxoa abestu zan, samiñez, baiña gogotsu ta maitekiro, an ziran guztiak, gure artetik betiko joan yakun aberkideari azkenengo agurra eskeintzen.

Ezaguna gendun Joseba-Andoni, guztiok; eretxi-on andienean izan dogu bere ontasun eta zintzotasunagaitik. Gazte kementsu au mendizalea zan, bear bada, an, mendi gaillurretan aurkituten ebalako erribarruan ez dan azkatasuna, baita jolas eta oitura garbienetakoak be. Orretarikoa zanez, gogogai zindokoa, egia, zuzentza ta azkatasuna bere erriarentzat nai ebazan. Zio ori zala-ta, aldi luzean egon bear izan eban bere sendi ta adizkideengandik urrunduta. Ba-ekian berak baiña, ixillean irauten, orretarako gertatuta egoan-ta. Jauna, zergaitik daroazuz gure ingurutik euzko anairik onenak, berton bear doguzanak?

Agur aberkide maite, gero arte! Ain maite ebazan mendi gaillurretara igoten garan bakoitzean, gomutan izango dogu gazte zintzo azkatasun zale au. Irakurle maite, otoitz samur bat euzkotar kementsua zanaren gogo alde. Goian Bego!

ABI BEROA

«Baskonia» mendigoizale bazkunekoak, euren batzokia egiten kementsu diardue aspalditxoan; esan dauskuenez toki zabala ta ederra izango ei-da. Bear be, bear eben eta sarritan esan oi dan lez, batzartoki orreitan eztizen dira mendizaleak, gero, mendian, nondik, zelan eta zertan jardun jakiteko. Ea, beste baten, batzorkekoakaz alkar-izketalditxo bat egin ondoren, «Baskonia» mendigoizale talde kementsu onen zertzeladak azalduten dautseguezan.

IBILLIZ IKASI

Aurtengo oporraldian be ezin izan gara joan izan asmoan genduzan alderdietara. Ez da izan borondaterik ez gendualako, txindi-ezagaitik baiño. Orretan, alkarren, antzera giñan adizkide talde bat, eta erri inguruan ibilli bear izan gara. Egun baten orratiño! joan giñan Gipuzkoa'ko Arantzazura, Euskalerri'ak daben tokirik ikusgarrienetarikoa, ta andik Urbia ta Aizkorri'ra be bai, ta lenengoz. Alderdi zoragarriak benetan iruditu yakuzazan; edertasuna ta ixiltasuna alkartuta, uri zaratatsu, auts ta kee loietatik urrin. Gure zorionez, bilbotar lau neskamutil euskaltzaleekin aurkitu gintzazan, eta alkarregaz ordu atsegingarriak igaro be, euzko abesti txukunak giroa alaituten euskuen bitartean.

Aldi atsegiñak, baiña laster amaituten dira, ta gu, nai baiño lenago, barriz Basauri'ra etorri bear izan giñan, ordu zoriontsu batzuk igaro ondoren.

«Edurre» euzko bazkunak be gertatu eban Baiona'ra joateko txango bat; naiko merke, txidi gitxigaitik, eta eunen bat neskamutil gertu giñan iparraldeko Euskalerri zati ori ezagutzeko asmoan, baiña ez eben baimenik emon, ta gure zori-txarra. Besteren batean izango dogu zori obea. Aurrera «Edurre», ez kikildu orregaitik.

KOLDO

Ibaizabal'etik

ETXEBARRI

Garrillaren 24'gnean asita, erri ontako urteroko jai-nagusiak ospatu dira. Au da, Jagoba Deun eta Iñaki Deuna'ren egunak. Erriko Udalaren babespean eralduten ba'dira be, bertoko «Beti-Bat» gaztedi bazkunak antolatuak izan dira, ta eusko giroko jai politak be izan dira aurten. Lenengo, pelota txapelketea jokatu zan, oztetza andiaren aurrean eta euron atsegiñez. Azkena, Sakristan eta Iruzubieta'k, Garzi-Ariño IV ta Gorostiza'ren aurka jokatu ebena, ta lenengo biok txapeldun geratu.

Iñaki Deuna'ren egunean, beste jolas eta jai batzuen artean, Bermeo'ko Erri-Lagunak, txistulari-batz bikaiña, biotzik motelena berbiztuteko naikoa diran irurogeiren bat neska-mutil pospolin. Erriko enparantza ta txaideak zear, kalejira alaiekin poztu ebezan erriratu zan notintza ikeragarria. Goralgarria da izan be Bermeo'ko txistulari gaztetxu oneik dauken zaletasuna ta emoten daben alaitasuna! Leenago be esanak gara, Bermeo'k era askotara erakutsiten dakiala bere zintoztasuna ta euskotasuna. Aupa bermiotarrak!

Makaillo-pilpil leiaketa bat be gertatu eben egun ortan, ta ainbat sartu ziran bertan, goralpen andia emonaz jolas-jakintza orrei. Ostean, errian dan ugartetxu polit baten senditarteko bazkaria izan zan, alaitasunik garbienaz ospaturik. Jai ta jolas guzti oneik, gazteleraz eta euskera txukunean aurkeztuak izan ziran. Bai ba, Etxebarri'n lenagoko beste euskera entzuten ez ba'da be, ba-dira oraindik euskera garbi txukuna darabillenak. Gure zorionak «Beti-Bat» eta jai polit orreik gertutzen lagundu daben guztiei.

URRIÑETIK

Kongo aldean urte mordo bat mixiolari egin ondoren, ain maite daben Euskaerri'an alditxo bat igaroten etorria da Arzelai'tar Eusebi Aita-Zuria, erriko seme maitagarria. Ondo etorria gure artera, Aita Eusebi, zeure jayoterri maitera, naita aldi txikirako izan.

Dagonillaren lenengoan Urbizu'tar Ipolito euskaltzale zintsoa, gurartetik Jaunak eroan euskun; sasoi oneko gizona. Goyan Bego.

GALDAKANO

Bein baiño geiagotan esan dogunez, urterik geienean, ia igandero, «Ganguren»eko mendigoizaleak txangoetan dabiltz, jakiña, mendirik-mendi. Baiña, oraingoan beste era batekoa izan da txango ori, bitxabalez eta uririk-uri, gure erritik urten ta Lourdes'erakoa. Aspalditxotik iragarrita euki eben lez iru jende-berebil andietan joan ziran, eun eta berrogeita amarrenbat zaar eta gazte, emakume ta gizonezko, geienbat mendira ez doazenak ba'ziran be. Dagonillaren 14'tik 16'rarte, alai ta pozik alderdi bikain ortatik ibilteko.

Lourdes artan ikusi ta aditu daben ziñeskereaz poztuta etorri dira danok. Gu be benetan poztu gara, txango au antolatu dabenak eta bertan izan diran guztiak pozez ikustean. Aupa Ganguren!



Galdakanotarrak Lourdes'en

Beste txango jakingarri bat be, euren 5'gna ospatua izango dabe lerro oneik argia ikusi dabeneko, beste eragozpenik ez ba'dabe. Iraillaren 3'gnean izango da, ta Araba ta Errioxa zear, erri ontako Sendi-Buruen Alkartasunak, U. E. E., Firestone, Pradera Anaiak, eta Formica lantegiak eta erriko Udala ta Bizkai'ko Aurreztetxean laguntzaz, erri ontako zarbidedunentzat antolatua. Beraz Irallaren 3'gnean Galdakano'tik urten eta Barazar, Gazteiz, Arganzon, Labastida, Sonsierra, Zenizero ta Naxera'tik Kalzada'ra elduko dira berreun eta berrogeiren bat, an ondo bazkaldu ta arratsaldean Casalarreina ta Aro'tik zear etxera barriz etorriteko.

Aurreko urteetan poz-pozez txangotik etorten ikusi genduzan, aurten be orretara ikusteko asmoa daukagu; bear be ba-dabe-ta, ainbeste urtean euren izerdiz Bizkai'ko landolak aberastuten lagundu daben langille nekatu orreik. Sendi-Buru Alkarteak gauza onik egiten ba'dau, berau da, gure ustez, txalogarrienetariko bat.

BASA-JAUN

Bakio

UMEEN EUSKAL JAYA

Egun zoragarria Ama Birjiñaren Jasokunde egunekoa, Dagonilla'ren amabostekoa. Bermeo, Busturi, Gernika, Mundaka ta Bakio'ko dantzari taldeak erriko auzotegietan zear kalejira egin ondoren amaiketako Meza nagusia entzun eben. Meza ederra, euskal kutsuzkoa, gure-gurea, erriarena. Dantzariekin nastean Bakio'ko ikastolako umeak eta erritarren seme-alabatxoak baserritar jantzita. Elizan ikastolako umeak, Mari Josefa andereiño trebeak irakatsitako abesti gozoak entzun genduzan, baita Lupe, bermeotar abeslari jatorrarenak bere. Gero biribilketak, txistu soiñua nun nai, alaitasuna, euskal dantzak eta euskal giroa. Bazkal ostean dantza saioa erriko pelota-lekuan. Gero bakoitza bere etxera.

Egun goragarria umetxoak itxuraz euskal jantzirik ikustea; oar bat eta eskaria gurasoeri: azalez ain txukun jantzirik egon ziran umetxoak, barrutik bere, izkuntzez euskaldun izan daitezan alegindu zaiteze. Ez izan egun bateko euskaldunak, gure erriaren etorkizuna zuen umetxoak dira ta. Zorionak erriko gazteok! ain ederto aukeratu zenduen jai ori, datorren urtean barriztatu bear dozue ta.

KIROLETA'KO EUSKAL-JAIA (DAGONILLAK 19'GN)

«Kiroleta»n euskal jai bat antolatu eben bazkide batzuk, Biotz-Alai abesbatzak ederto egin eban bere abesti saioa. Apalostean EGAN, Azpeiti'ko orkesteak eta Joseba Zarraga abeslariak izan eben euren ekitaldea. Baiña ez zan dana zoriona izan, beti dago euskal giroaren arerioren bat eta oraingoan bere bai, eta ez da lelengoz; barruko «arra» erakutsi eben gazte batzuk eta euren artean euskal-sendietako erdi «hippy» batzuk bere izan ziran, baiña olakoak gora-beera erria aurrera...

Ez ei eben euskerea ulertzen... eta inglesesko abeslerien oiuak ulertzen ete dituez? Barruko arra, barruko erdalarra!

Zorionak jai onen antolatzailleeri bere.

ERRITAR

Arrasate

EZ-BEARRAK

Gure lagun onak izan ziran, Baños Aiastui'tar eta Agirre'tar Pantzeska biak berebillen ezbearrez illak geratu ziran Oska aldean. Goian Begoz. Guda zital aren ondorean beren erri maitetik urrun bizi bear izan zuten eta azkenengo urte oneitan Errenderi'n zuten euren bizilekua.

Ezbearrez baita ere, gure erritar Madinabeitia'tar Domeka berebillean il da, bere bizitzako 31 urtegaz. Nere samin biotzkorrena bere emazte, seme-alabei, ta guraso atsekabetuai.

Ene maiteok, kontu izan zazute zuen berebillakaz bitxabalera urteten zeratenean, arrisku aundi baten sartzen zerate-ta.

«LORAMENDI»RI OMENA

Aretxabaleta'ko «Alkar» alkarteak eratuta il onen 26'an izango da omenaldi ori. Begoña'tar Jokin Aita olerkari ospe aundikoari bere auzo polit Begoña'n egingo zaiona. Auzo au, orain gitxi arte Aretxabaleta'koa zan, baiña orain Arrasate'ri dagokio. Oraindik ez dut zeintzuk jai izango diran jakin, baiña arek merezi dituan aiñako jai orokorrak izango dirala uste da.

ALKATE BERRIA

Orain arte erri ontan alkate izan dugun Azkoaga'tar Imanol'ek bere lekua utzi egin bear izan du. Alkate onengaitik ezin izango dugu gaizki aundirik esan, baiña bai zerbait, ondo egiñak zituanagaitik, batez ere euskaljaiak eratzeko ematen zun laguntza ta gaiñera Ikastolaren goraberetan bere laguntasun osoa ematen zulako.

Bere ondorengo, Basterretxea'tar Kepa aukeratua izan da, eta onek ere bestea beste gutxienez egingo duala uste da, erriko euskalgaietan. Baiña tamalez, ez du erriak bere autarkiz aukeratzerik izaten, zuzentasunak eskatzen dun bezela.

ARRASATE

Gure erri maite onen izena aldatuta, bear litzaken baiño geiagotan entzuten da, bere jatorrizko izen ederra aztuta. Batzuk, «Mondragoe» diñoe; beste batzuk Mondragoi, eta beste arek Mundraue. Ta ori ez dago ondo. Bai, ba-dakigu gure izketaldi geienetan olan esaten dogula, baiña ikasi egin bear dugu bere izen jatorra eta egokia erabilten: ARRASATE.

UDALAITZ

Bilbao

Joan jaku gure Aste Aundia.

Jai itzelak izan doguz. !Ikusgarriak! Aste orren barruan, egunero, egun-sentia ta illunabarra ikusi doguz. Arritzekoa izango da baiña egia, egia da. Mermiotar batek esango leuken lez, «neuk ikusikua».

Egunero baita be, (au ez da edonun ikusten dana) egunero bi bidar! itxas-gora ta itxas-bera izan doguz. Jai au eraldutea ez zan izan erreza, ardura aundiak eta diru pilla aundiogoak bear ziralako. Ala ta be, emen gizon trebeak doguzalarik, minutu baten okerrik gabe bete zan egitaraua. Itxas-uiñak, ordu egin-egiñetan, aste guztian amalau aldiz egin eben euren atzera-aurrerea, gora ta bera. Siñis eziñik gagoz alako trebetasunaz.

Egun guztietan baita be, egun argitxoagoak eta illuntxoagoak izan doguz, ondo neurtuta! ogeitik ogetamarrera bitarteko mallan beroa naurtuaz. Bapo jai eraltzalleak! ori da gauzak bere neurrian erabiltzea! Neguan edozeiñek egiten ditu alako giroak, baiña udearen kolkoan? Geure gizon trebeak izan ezik, iñok bez!

Ala ta guztiz be, erriaren itxumena!, Bilbo'ko «Semana Grande»ri, «Semana Santa» izena ezarri dautse. Diñoenez, gorago aitatu dituan edergarri guztiak gora-bera, urtearen buruan ez ei da aste «tristeagorik» Bilbo'n, Aste Aundi au baiño. Ez da erreza erriaren gogoa betetzea!

Jai antolatzaleak baiña, erriaren gogo ori asetzeko alegiñak alegin egin dauskuezala, ezingo dogu ukatu.

Zezenak, izan dira; berrogetamarren bat garbitu dabez. Euretatik zezen-zaleak buru-makur urten zirala? Ori ez da iñoren errua.

Arratsalde batez, zezen ostean, orretan jakintsu dan ezagun bati galdetu neutson:

—Da? gaur zelakoa izan dozue, ba, zezenketa ori?

—Gaur, batek lortu jok berea.

—Zer lortu jok, ba?

—«Oración y oveja y vuelta al ruido» —erantzun eustan.

Orrez ganera, Panpin Antzerkiak, be, izan doguz (Teatro de Marionetas).

A! ta... zinea be bai. «Trasplante a la italiana» deritxona. Baiña au ikusi eban adiskide batek esan austanez, pelikula onek ez ei dauko zer ikusirik, baratzeko landara bir-aldatzearekin.

Bir-aldatu bear dana, Bilbo'ko jaien egitaraua, ei da.

ABELETXE

* * *

Lagun on bat il jaku Bilbo'n. Bein betiko joana dugu lur onetatik Ramiro Bourgeaud. Zudaire'n, Naparroa'n il zan Dagonillaren 15'ean. Lerro onein bitartez, samin-agurra bialtzen dautsagu sendi osoari.

«Gau-txori Bilbotarra» ta «Gorbetayarra» izan zan.

Agur Ramiro. Otoi bat eta gero arte.

TXERU

Larrabetzu

Larrabetzu, bi milla bizilagun eta sei eguneko jaiak urte barruan.

Udaletxeak eta erriak eztabaidak ditue. Kritikat ugari sortuten dira. Kritika ori zenbatek sartzen ete-dabe norberen bizi-jokoan? Benetan, bearrak miaztu egiten dau jentea.

Larrabetzu bezelako erri txikietan, sarri, argiago ikusten dogu zeintzuk diran gure errietako arerio «ofizialak» eta zeintzuk arerio «errealak».

Euskerearen zabalkundea, gure errien etorkizuna eta gure jakintzaren biztuerea, ez dago ainbestean jokabide edo Udaletxeetan, geure pentzamoldetan baizik.

Jakintza zaletasuna bear da. Pentzaerea ere berriztatu egin bear dugu sarritan. Inguruan daukagun izatea bera ikusi, ikasi ta, orri bildur barik, bideak artu bear gendukez.

Baserrietako izatea bera, industrilagilleekin bardinduten doa egunetik egunera. Landoletakoak, euren eskuan izango dabe, geroago ta geiago, baserritarra. Esate baterako, eznearen eta pentzuen egoerea.

Oneik eta beste egoera bizi batzuk aztertu bear ditugunak dira, euskal kultura bizia, indartsua ta errikoia egin gura ba'dogu.

AUNTZ

Arantzatzu

MAKAILLAUTZA

Erriko tabernako Juli emakume gartsua, zirt eta zart utsak, Finlandia'ra makaillotan berenberegi joan eta beren begiz eta eskuz aukeraturik ekarritako arraiñakaz berebiziko pilpilketarik begikoena eratu eban errikideentzat.

Asi ziran, bada, bikoteak lanean, illintiak su ta ke, erratilluak pilpilka. Baratzuri edo berakatzak bere bearrezkoak zirala-ta, zartainkadea gertu ondoren, ots egin eban norbaitek berakatzik ez zala bear, eta lurrera jaurti zituezan.

Besteen batek, barriz, baietz! Bearrezkoak zirala. Batu zituezan banan-bananka (eskuare bage) ta... saltsara. Polpol eta mormorrari eragoion erratillua, kazuelatxo bat barriz, lurrera itxuli izan zan; orratio baiña, ezegoan alperrik galtzerik, eta arrain, arri-koskor t'abar barrienbarri ta beingoan ontziratuak izan ziran.

Lenengo saria Bartolo ta Tolin'ek jaso eben, bakoitxaren etxean sukaldea non dan ozta-ozta dakian mutilzar bikote plageak. Bigarrena, Juli - E. Ipiña'k; eta irugarrena (makaillo-buztana) Jon Elias'ek. Maiko izan ziranak: Segunda, Pepe ta Antxia'k zeregiñik asko izan eben orkoloa saltsarten sartu ta miazkatuten.

ESKONTZEA

Aldizkari au eskuan izango dogunerako, il onetako 5'gnean ezkontzekotzat izan ziranda, Mantzarraga'tar Ester, Bixenti'ren besondo epelari maiteki loturik ikusia izango dogu. Zorion!

ANDRAMARIEK

Iurre'ko jaien iragarkairik ikusi ez dogun ezkero, esatekorik bere ezer ez dogu. Zeanuritarrak egertu dauskuen euskal-zaletasuna ta nortasuna ixil-lapikorako gogorregiak diralarik, emen doatsuez gure begientzat negargarri diranak: «Comidas del Pais - Cafe». «Ternera del pais y quesos de Gorbea». «Alquiler Mula *China*». «Viajes a Gorbea». «Especialidad en callos». «Cangrejos del Gorbea». «Bar para romerías». «Corte de pelo a navaja». «Comercio en General». «Vino Selecto, Chorizos caseros», abar eta abar, zaputz eta pautz. Noiz itxartu ta urtengo gara koko-zuloetatik?

Gora ta gora Manterola'tarrak Txomin eta Felipe, eta Mendibil'tar Alexander.

LANDAJUELA'TAR A.

AGUR SEGUNDO!



Dagonillaren 21'gnean. Olaeta'tar Segundo il da, edo obeto esateko, betiko zorion Aberrira joan jaku.

Ez gendun bera, buruz-buruko alkar-izketa bidez larregi ezagutzen, baiña bai bere seme-alabak, bere sendia... eta zugaitzak olako adarrak, alako enborra.

Gernika'n jaioa, bertako soiñu taldean zuzendaria izandakoa, Elai-Alai dantzari taldearen sortzaillea; guda aldian beste aberkide askorekin erbesteratua baiña beti errizale amorrotua.

Ipar-Euskal errian, Biarritz inguruan, Oldarra ta Pinpiriñak, dantza taldeak sortu zituan, txistua joten ainbat umetxori irakatsi eutsen maixu jatorra. Ango euskalduneri, errizaletasuna sartzen alegindu zan euskaldun ona. Ez eban ez, Segundo'k opor larregirik artu...

Gero Bilbo'n barriro, Ballets Olaeta'ren sorketan, biotz eta arima izan zan mundu zabalean zear gure nortasuna ta oiturak erakutsi dituan talderik bikaiñena; erbestean bizi diran euskaldunen eta euskaldunen seme-alabeen biotza poztu ta errizaletu daben talderik trebeena.

Orrek izan dira Segundo'k bere sorterriari eskeñi dautsozan opari ederrak. Ori izan da egizko errizalea izatea, ori len, orain eta betiko errizaletasuna!

Orrez gaiñera Aita Felix Bilbao'k azken agurrean, Gernika'ko Andra Mari Eleizan esan euskunez, San Frantzizko'ren antzera apaltasunaren irudia zirudian. Zer gauza ederragorik, apaltasuna baiño?

Abestiakin agurtu zaitun sendi orrei, «Agurrekoen» izenean, oiñazez... zorionak! eta zuri Segundo, zure «maixu» izan zanari egin eutsezan bertsoekin, gure agur beroa.

Agur «maixu» maitea
Agur sekulako
il zara zu betiko
ludi ontarako,
baiña egunen batean
alkar ikusteko
Jaunari eskatzen diot
Zeruan artzeko.

JOSU

JOKAERAKO TANKERAK

Azken bolara ontan idazkirik aski irakurri dut *euskaldun* izatea zer den eta zer ez denetzaz. Baiñan, iñork ez du aitatu, edo ez dut irakurri, alegia, euskaldun izateak, osoa izateak, baduela bere jokaerako tankera bat.

Eta gure arteko arremanetan euskal jokaera galtzen ba'dugu, edozein jaketoren tankerako izango gera.

Oraindik berriro, Iruña'n emateko zen ikastaro bat galerazi dutela-ta entzundakoak ez dute iñongo euskal tankerik.

An egin dena ez dago ondo egiña. Bear gabe iñor minberatzea, ez da egokia. Ez dakit zergaitik egin den. Baiña, ikastaro eratzailleen pentsakerari begiratuta bakarrik galerazi izan nai ba'da, esan dezadan nornaik duela nai duen eran pentsatzeko eskubide, besteena errespetatzen duen bitartean...

Ez, Iruña'ko jokoak ez du izan euskal tankerik.

Baiñan da... ikastarora joaniko pertsona batzuen asarrea zuzena al zen? Zer sorginkeriz billatu zuten ain azkar erruduna? Edo, grin txar batek itsututa esan al zituzten esan zituztenak?

Nungo ta zer arrazoizko susmoa zuten, izaniko eragozpena «Ikastol Elkartearen azpilan baten ondorio zela esateko?

Alkarte barneko egitamua ezaguturik, nola esan zitekeen orrelako itxuragabekerik?

Irakaskintza ikastoletan eman bear denez, zer naiago du gurasoak aurrak irakasle ikasien esku ikusi baiño? Eta, ikastaroa, ikasteko eratu zen noski. Beraz, ikastolei ez zetorkien iñongo kalterik. Orduan, ikastolentzat ona ba'zen, Elkartearentzat txarra ezin izan!

Ez, Elkarteak etzuen ezertxo ere ikastaro orren aurka, nik dakidanez. Eta, ondo baiño obekiago dakit, Batzar Nagusiak kontrako erabakirik artu ez duela.

Nolaz ausartu orduan susmo zital ori zabaltzen? Orrek ere ez du euskal tankerik...

Gogoeta osotiar bat ikusten dut, an gaizki-esaka ibilli ziranen artean. Baiña, arazo onetzaz beste egun batean idatziko dut.

Irakasle guziak euskera benetan aldezkatu ta zabaldu nai duten euskotarrak ba'dira, belar txarra ereiteko baiño lan sailla alkarrekin jorratzeko arrazoi geiago daukatela esango nuke. Era ortako gezur eta salaketak, ordea, ez dut uste uzta onik ekarri dezakenik.

Gaur ari da biar idatziko den ixtoriya egiten. Geroak ebatziko du gaurko jokaera...

ZALOÑA

ONAREN DEIA

Ona, egin aurrean ta ona, egin ostean, garrazika, dabil. Laguna, beti, onaren egarriz dabil. Deadar onek gizonaren almen guztiak goituten ditu. Era guztietako lagunak, berez, gauza bat nai dabe, bakarrik, ona. Onak izan bere, txundituta izten ditu, burua argituta ta biotza asetura.

Garaiz, jakituria artzen alegindu zan gizonak, gizon barriak aterako ditu ikastolako orduetan. Argi bidez ta eziketaz diardu lanean. Lanketa gorenengoa burudun izakiak gertatutea. Gizartearen ona jakituri ta ezi-bide onetatik etorri bear dau.

Iñoren buru ta biotza argi maitasunez landu dituen gizonak, onik aski egiten diardu ondorengoen bitartez, Jakituri zuzena eta eziketa bidezkoak azken gabeko urre katei gisara doaz on dirdaiak zabaltzen.

Gizon osoaren eziketa baliotsu au mintza ta mintza dabil argiz laiñoak uxatzen, gizadian bizitza barri bat egizkoa izan dedin.

Jakituriaren egiteak itz dagie, baiña era bardiñean ez beti. Baserritar zintzoak udabarrian asi ta negurarte bere jakituri, osasun ta almenen erara lanean diartu. Nekeak neke, iñoz, ez da gelditzen. Iñoren laguntasunik ez dau izango. Bere alegiñen erara jardungo dau orduen erruki barik.

Aren lanaren ondorenak era samiñean itz egingo dabe. Izerdia ta nekea goizetik gabera eten bage. Sarritan, ondoren on asko barik. Baten baiño geiagotan euria euriaren gain etorriko da ta ereindako azi erne-barriak bere begiekin ikusiko ditu ainbeste ureen garraztasunez erre ta ezeretuten.

Baiña ori dalata, arekin iñor ez da errukituko ta urteroko sasoia eldukeran, etxeari ezarritako zergak ordaindu bearko ditu. Baserritarra badabil bere jakituri ta indar guztiekin bearrean ta bear saririk, sarritan, ez dau ikusten. Ta nekeak ostera edonundik datorkioz, bai lurretik, bai eguzkitik ta baita lagunen aldetik.

Jazoera onek, biziki, mintzatzen dira aren barrurako samiñez.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

OROIMENEZ

Aurtengo iraillean, Ibargutxi'tar Jon Gurutz abade ospetsua ta euskal idazle gorengoa il zanetik urte bi betetzen dira. Ta ez neuke nai beragaz aaztuterik. Ubidea'n jaiotako abade au gizon, abade ta idazle bezela bai aundia. Jaunak soin aundi-mardula emon eutson, baita gogo azkar ta ona ere. Bere izketa leuna, ibilte itzaltsua ta jardun-era atsegintsuagaz edozeiñen begietan gizon andi, goiko ta goren agertzen zan.

Abade legez eredu zala ezin ezelan be ukatu: Eibar, Zestafe, Marin, Eskoriatza, England, Prantzi, Logroño'ko Badaran (bere atzerria) ta Basauri'n batez ere bere gogo-artzaintza egin eban. Eta itandu alde guzti orreitan zer eta zelan zan Ibargutxi jauna. Ta bai lagunak, siñesdunak, baita siñesgabeak ere, erantzungo dautsue: «Orrelakoak ba'lira abade gustiak, bai ederra, goragarria ta onurakorra abedetza.

Euskal idazle bezela zer esan beratzaz? Ondo baiño obeto ezagutzen eban gure euskera maitia. Maite zituan euskal arazoak eta lan-ta-lan euskera ta kristau gogoen onerako, orra berak idatzitako idazti batzuk: Edesti Deuna, Siñiskaiak, Otoia, Jaungoikoaren legeko Aginduak, Ikurtonak, Geroko Bizitza, Iñaki Deunaren Bederatziurrena ta bateo ta azken igurtziaren liturjia euskeraz. Aldizkarietan ainbat idazlan egertu zituan. Argitaldu barik ere lan asko ditu egiñak, batez ere «Mezadia edo urteko egun guztitarako mezak», ta azkenez teoloji-barriaren eraz «Gaizkatze edo Salbaziñoaren Edestia». Bere idazlan guztiak garbiak eta ondo idatziak dira. Zenbat izerdi ta ordu lan aundi orreik egiteko! Bere euskerea zail samarra dala? ori ere aberastasuna da. Bakoitzak bide bat urratzen ba'dau, euskera ere aberastuko da.

Ibargutxi jaunaren aunditasunik aundienak bi dirala nik uste dot: Teoloji-bide guztiak euskeraz urratzea te egin eban lan guztia ta idazti danak Jaungoikoatzaz idaztea. Gauza sakonagorik! Eta ederragorik! Abade idazlari batentzat bai ete? Orrela Ibargutxi jauna abade ta euskaldun oso ta zintzoa agertzen yaku. Itz gutxitan esanda ori dogu gure Ibargutxi. Soiñez areitz tantaia bezain luze ta mardula, gogoz ez diru-zalea ta bai apala, tolesgabea ta kementsua. Erru barik zigortua be izan zan, mundu onetan. Baiña berak daneri parkatu, danentzat irriparrea ezpanetan eta arerioak ere maitasunez beragandu zituan, sarri askotan. Onetzaz esan geinke beste euskaldun andi batek idatzi ebana: «Zorionekoa askori asko parkatzeko daukan gizona, parkatzen ba'daki» Eta Ibargutxi'k ba-ekian benetan parkatzen.

Emen gaur nere oroipentxua AGUR aldizkarian. Baiña geitxuago ez ete yako zor gizon ospetsu oneri? Edo enparantza edo eliz-ikastetxeren batek ez ete dau eroan bear bere izena, bere gomuta beti eredu ta jarraibide izan daiten?

GALLASTEGI'TAR KAULDI

(4'gn orrialdetik)

«A LA CUARTA» TA AZALBAKO PILLOA

Galtzayek onetan ez dira gelditzen.

Aitatu dan piñua, 0,85 ala 0,80 m/³ egiz eta azal barik serra-olari saltzen yakonean, basoyaubeen kalterako sartu dan ekandu txar bat dala-ta, neurri orrek eskatuten dabenez ez da ordainduten, borobilla laukoiztuteko kentzen yakozan atalak eratzita baiño. Orren galtzeya euneko 21,43 da «a la cuarta» deritxon eran saltzen danean.

Labur: Zutik dagola azal ta guzti metro kubiku bat daben zugatza egin eta azal barik 0,80 ala 0,85'ra urrituta gelditzen da, ta «a la cuarta» eran ordaindu ezkero, 0,6285 ala 0,6678 bakarrik ordainduten dauskue zutik, azalagaz eta punteraiño metro kubiku bat eukiarren. Irutatik bat galtzeraiño.

Au ola dala, serra-ol batek egurra «a la cuarta» esaten yakon eran, esaterako 1.000 peseta m/³ ordaintzen ba'dau, egiz eta azal barik, neurriaren 0,7857 bakarrik ordaintzen daben ezkero, 785,70 peseta m/³ egizko sal-neurria da.

MESANZA'TAR BERNARDO

AGUR

II. URTEA
21 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - IRAILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ABADEA

Gotzon abadea gendun.
—Baiña zelako abadea?

Eleizearen kondaira guztian ez dot uste iñoz, abadeai buruz, gaurkoa lako ezdabaida sakonik sortu danik. Urte batzuk igarotakoan abadetza barri bat agertuko dalakoan gagoz, eta abadetza barri ori sortzen gagoz gaur ainbeste neke-miñetan. Abadetzeak oso-osoan aldatu bear dau eta aldatuez doa.

Zelako bidea artu eban gure Gotzon'ek barriztatze onetarako? Urte bete da il zala, eta urte onetan bide-zati barri bat egin da. Baiña bere orduko eretxiak aztertu dagiguzan. Eta ez eretxiak bakarrik, baita egiteak bere.

* * *

Gotzon Erri-gaztediaren arduretan sartuta egoan eta talde orretan lanak egin zituan. Bear ba'da, bere eretxiak, guztiak beintzak, ez ziran betetzen, baiña ez zan agintari gogorrak lakoa, ez zan diktadorea, laguntzaillea zan, indaremotzaillea zan.

Gotzon bere Errian sartuta egoan, eta benetan Erria ezagutzeko arraintzaleakaz itxas-sakonera joan zan, arrainlantegian esku-lana egin eban.

Benetan Erria maite ebalako, aldakuntza sakon bat nai eban, al dala guda bako aldakuntza, baiña benetako aldakuntza. Bake zalea zan, baiña bake zuzenaren laguna.

Eleiz-gizon legez be, aldakuntza billatzen eban eta orretarako Ebanjelioaren argia Erriaren barru-barruragiño eroan nai eban. Eleizea garbitzea bere ardurarik bizienetarikoa zan eta orretarako ekintza gogorrak egin bearra izan zanean an egoan Gotzon Eleiza jatorra, erritarra, bizkorra ta txiroa eskatzen. Zelako barruminña emoten eutsen Ebanjelioaren izenean Erria zapaltzeak!

Eleizea benetan Jaunagana biurtzea nai eban eta ori lortzeko zintzo eta zeatz jokatu eban. Eleizearen barrutik, Eleizea itzi barik: eleizkide zan lez, errikide be zan.

* * *

Elburu oneik lortzeko abadetzeak zusterretik aldatu bear ebala argi ikusten eban. Eleiz-Batzar Nagusian oiñarri bilduri batzuk agertu ziran. Baiña, oiñarri orreik elburutzat artu barik urteera lez artu bear ziran eta aurrera jo. Orretarako artu bear ziran erabagiak eta bideak artu ebazan.

Abadeak, «gheto» bat izan barik Errian sartu bear eben, eta Erriaren aurrerapena barrutik eragin.

Orretarako aldakuntza asko egin bear eta gorabera asko sortu.


Abade-jantzi berezia itzi bear zala? Lenengoetarikoa izan zan orretan be.

Abadeak bere esku-lanez bizi bear ebala? Sartu zan orretan be.

Erri-jakintza aunditu egin bear zala? Bermio'tarren batzuk bere lanaren ziñeslariak izan leitekez.

Beste gai asko aitatuko dira uste dot gaur eskuetan artzen dozun zenbaki onetan, irakurle. Baiña ez uste izan Gotzon'ek bere ametsak bete ebazanik. Gaztetan agur egin euskun eta eragospen aundiak aurkitu ebazan bere eretxiak aurrera eroateko. Baita jazarpenak be ugari anai-artetik eta arerio artetik. Bera zan gizon argia eta zintzoa izanik, Mañu'ko baztertxuan egoteko zio indartsuak izan ziran. Baiña berak baztertxu ori benetan maite eban eta bere lanaren ondorenak andik arago zabaldu ziran. Zori txarrez, ez ebazan urte batzuk geiago izan bere zeregin ederra betetako. Bere ondorengo garanok itzi dauan utsunea betetako gai izango al gara.

AGUR



GOTZON LANGILLE

Gizonak beti izan dau lan egin bearra eta, orregaitik, gizartean alperrak eta iñoren izerdiz bizi diranak iguingarri agertu dira. Bakotxak bere lekuan, bakotxak bere erara, baiña guztiak lan egin bear, lanaren bidez alkarri laguntza emon eta gizartea aurrerapidetik joan daiten.

Eta lege au beti gizartean bete bearrekoa izan ba'da, gaur iñoz baiño argiago agertzen da, lege oneri uko egiten dautsoenak nabarmenago burua erakusten dabe. Ba dira lanik ezin dabenak, eta onei laguntzeko gertu dago gaurko gizadia, baiña egiteko almena izanik egiten ez dauna, benetan, gorrotagarri da.

Askotarikoa da lana, orregaitiño: agintaritza zintzoa eta Erriaren otsein dana, lana da; salerosketea lana da; lugintzea lana da; aziketea eta jakintza zabaltzea lana da; lantegietakoa lana da... Zer da, ba, lana? Gizarterako onuragarri dan edozetariko zeregin guztiak dira lana.

Gizonaren bizitzan, geienez, lan bat izaten da oiñarri lez eta beste lan batzuk «hobbi» lez. Esaterako lantegian egun osoa egiten dauanak, etxeko beste lantxu batzuk, baita baserrikoa be, «hobbi» lez artu legike. Zori txarrez, oiñarri diran lan asko daukazanak «pluriempleo» edo askotariko lana dau eta ez da au bide zuzena.

* * *

Gure Gotzon lan-zalea zan, eta bere bizitzan askotariko lanak agertzen jakuz: Lan egiten eban abadetzan, baiña onetan eukan ardurea ez zan naikoa bere bizitzea orniduteko, Mañu'ko eleizatxuan bere almen guztiak agertzeko erarik ez eukan. Lan egiten eban euskal-idazlaritzan: liburu bi idatzi ebazan, AGUR'era idaz-lanak ugari bialtzen ebazan... Lan egiten eban, baita, Erri-eziketan, lan gatxa ta arrisku aundikoa au; batzarretan, taldeetan, erri-jakintza zabaltzean...; eta, azkenez, lan egiten eban esku-lanean, lantegian.

* * *

Gogoan doguz abadeak esku-lanera emon ebezan lenengo oinkadak. Orduan gauza barria zan eta, ori dala ta, iñon diran goraberak sortu ziran. Baiña gaur asko aurreratu dogu bide onetan. Gaur gauza egoki lez agertzen jaku abadeak esku-lanean ekitea.

Ba dira oindiño gure artean abadeen esku-lan au onartzen ez dabenak. Esku-lana baiño aurrerago beste lan batzuk ditula abadeak uste dabe. Esaterako jakintza zabaltzea, erri-kontzientzia itzartzea... Baiña geienen ustea ez dot uste ori danik.

Lenago abade izatea bera zan gizartean lan bat egitea, baiña gaurko gizadiak abadetzea bizibide lez ez dau onartzen, gaur abadetzea ez da gizarteko lan berezia. Ori ikusi eta konturatu eban Gotzon'ek, eta origaitik lantegira, bearrera, sartu zan. Orrelan azkatasun bat eta bere buruaren jabetasun berezi bat lortzeko ustez.

Geroko abadeentzat eredu aurreratu bat izan zan gai onetan. Ez da errez geroari begira igarleak izatea, eta ain aldakuntza aundiak izan bear ditun gai baten gatxago. Baiña geroko abadetzea esku-lanez janaria irabaziko dauana lez ikusi eban, eta ba leiteke orretan oker ez egotea.

* * *

Erri-maitasuna ta lana, esku lana, alkartuta ikusi ebazan. Izan be, non aurkitzen dogu gure Erriaren zatirik nagusiena? Gaur lantegietan. Antxiña gure ekonomia baserriari lotuta egoan, eta gaur be zati on bat lotuta dago. Baiña gure baserriak utsituez doakuz, euskaldun baserritarrak geroago ta urriagoak dira. Eta gizartearazoak garrantzi aundia dau, geroago ta aundiagoa. Erriaren aldakuntza bildurgarri onetan erdikide izan gura dauanak, nai ta nai ez berengo maillako langille artean egon bearko dau, eta une gogor onetan langilleakaz batera indar egin bearko dau, askotariko azkatasuna lortzean lantegiko jopuizatik be azkatu daiten.

Ba dagoz lanetarako beste era batzuk bere. Askotariko langilleak, guztiak bearrezkoak, ditu gizarteak. Baiña nok ukatu esku-lana berengo maillea dala eta an aurkituko dauala kristiñauak, baita abadeak be, «lapurrak zauriuta itzi eben gizon beartsua». Eta ipuiñean agertzen dan abadeak, zauritua bertan-bera itzita igesi egin ba, eban, Gotzon abadeak ez eban oben ori egin nai, langille ta beartsu egin zan beartsuakaz batera Erria aurrera eroateko.

* * *

Eta lanak gero sindikal-arazoa ekarriko eutsan. Ez dakit orretan noraiño sartu zan. Bear ba'da denpora asko be ez zan izan eta, orretarako erarik ez eban izango. Eta gure aurrekoak ori aldi-arazo bat lez artzen eben, «tenporalismoa» esaten eutsoen, abandeentzat debekatua. Baiña gaur ezin ukatu abadeak langille lez orretan be sartu egin bear dauala. Antxiñakoak esan eban lez, «gizona naz eta gizonaren ezer ez dago neurea ez danik».

Erreza zan itz-tokira igon eta onuları lez gizonai itz egitea, baiña benetako gizontasuna, guztiak batera onu orreik betetzea da. Benetako artzaiñak bere bizia emon bear bere ardiakaitik, eta ez bere onu ederrak geiago barik.

Eredu dogu Gotzon langillea. Bere oiñatzai jarraituz, Eleiza ta gizadia barriztatzeko bideetatik joango gara.

OLAZAR MARTIÑ'EK

GEURIA DA-TA, GEURIA DA...

Nork ez dau entzun izan aurtengo udaldian abesti polit ori? Soiñua israeldarra dalakoan nago, baiña euskerazko itz samurrok ondo alkartzen dira eresi orregaz.

Geuria da-ta, geuria... Baiña ez iñoiz entzun dogun bezela «gorria», orlegia baiño, berdia. Batzuk izan arren, ez gara euskaldun geienok «daltonikoak» eta apur orreik gorabera, nai ta nai ez, orlegia da gure erria, gaurkoz beintzat.

Iñoiz, erbestetik etxeratzean, bultzitik edo egazkiñetik gure lurraldien orlegitasun bikaiña ikusirik, alako dardakada bat artzen eban gure biotzak... Emengo margo eder ta ugariak ikustean argi agertzen jakuzan gure eskerrak emon bearraren arrazoiak; ez dakit nori ala zeri, batzuk Jainkoari, beste batzuk, bear ba'da, izadiari, baiña bai norbaiteri edo zerbaiteri.

Gure errietako lurrak orlegiz jantzirik dagoz, orlegi itxaropentsuz. Gorriak teillatoak ikusten dira bakar bakarrik, sasi-jakintsu edo aita-burges-txiki batzuen seme-alaben antzera... Gure lurraldeak iñoiz gorritzen ba'dira, Marte'ren itxurea arturik, ez dira, bear ba'da gureak izango, naizta margolari barri orreik euskaldunak izan. Gorritze ori amaitutakoan, lan ori bukatu ondoren, ipurdi ondoan ostikadea ta... ala! gurea zana, beti lez, erbestekoentzat.

GUREA GORRIA BA'LITZ...

Beste erri batzuri begiratu bearko, zer jazo leiteken ikusteko. Emen bere adibide batzuk erakutsi dauskuez, ez baiña «margolariak» nai dituen beste. Iritxien itxaso ertzean dabiltzan margolariak, ertz-zale arraintzaleen eskuetan jausteko arriskoan ibilli dira, ta jausi dira sareetan, naizta euren guraso ta lagunak ukatu. Margolariok, euskaldun lez jantzita agertzen jakuz, baiña ona emen, euren eskari edo eskeintza batzuk: euren elburuak.

«Gure erriaren nortasun berezia, munduko beste langilleenakin nastatu, korapillotu, ta azkenean, urtu. Orretarako, kanpora euskal kutsudun oiturak; «boikota» euskal jayeri; ikastoletara burrukea eroan, nastatuaz, ta galerazoten ba'dira, erria sutuko dalakoan... Umeak euskera barik geratzen ba'dira, zer ajola? Zertarako izkuntz burges ori, iraultzarako tresna izan ezik? Euskerea euren izkuntzea bezela maite dabenak, razistak dirala, ta munduko langille guztiak alkartzeko oztopo bat».

«Sendia apurtu bear ei-da, estruktura kapitalistaren oiñarria dalako; seme-alabak zapalduak izan ei-dira oraiñarte gurasoengandik; eurok, margolariok agitzen dabenean seme-alabak estaduarenak izango ei-dira, estadu gorriarenak».

Oneik eta beste asko izango dira «gorritze» orren aurrerakuntzak. Langilleak bitartean, zelan?

LANGILLEEN GIROA

Ba-dakigu beste erri batzuetan zelan dagozan. Askatasunik bai? Bai zera. Langillea, kapitalista laterrietan zapalduta ba'dago, «gorri» orreitan beste orrenbeste. Goiko maillan betiko burokratak, langilleen izenean itz-egiten dabenak, baiña makillea eskuan daroenak, ta mailla ori eurentzat lortzea da gure «margolarien» elburu bakarra.



Ez, margolari barriok! Gure erria «gorritu» nai ba'dozue, aurretik erriaren zentzuna galduarazi bearko dozue, ta ori ez da erreza izango. Euskalerria ez da Arjelia edo Bolibia. Zarautz'en erantzun polita emon dautsue erriak, ango euskal jayeri boikota egiteko agindua zabaldu zenduenean. Erria, oso-osoan, beste aldera agertu zan: Euskaldun Zintzo. Eta Zarautz'en lez, bardin izango da beste errietan bere, gurasoak, gazteak, andereiño geienak eta ikastoletako guraso-alkarteak *egia jakitean* konturatzen diranean.

Erriak jarrai bedi «geuria da-ta, geuria da» abestuten, baiña, barriro esan bearko, gurea orlegia da, orlegia ta ez gorria.

Aurreratuena; Gizasemearen eskubideak gordetzen dakiana; Gizarteko mailla edo klase bardinduna; Diruaren indarkeri bakoa. Baiña orlegia, euskaldun-utsa, ori da gure erriaren biotza, ta guk nai doguna beintzat, gure erriarentzat.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Nere Bordatxotik

KEZKA BIZIAK

Irailla'ren bosgarren eguneko zenbakia «Zeruko Argia» astekariak. Asterokoaren etxe-idazkian arrazoi mardulak aurkitu ditugu. Gogoan izan bear genituzkenak. Emen azalduko dizkitzutet aietako batzuk. Ona bat: «Ez dezagun aztu gure erriaren egoera. Gure erriak ez du ikastolarik izan. Erderazkoak izan ditu ta dauzka, kultura-bide guziak. Etxean eta kalean ikasitako euskalkia besterik ez daki». Au ez genduke aztu bear, ez, baiña amets batean bizi ote geran dirudi.

Idazle batzuen lanak irakurtzen asita, esan diteke Grezia'ko zazpi jakintsuak baiño jakintsuago gerala euskaldun guziok. Eta ez-jakiñik aundienak izan. Jakintsu izateko ez-paitegu motiborik. «Zeruko Argia'k» dion bezela, gure erriak erderazkoak izan ditu, ta ala ditu gaur ere, kultura-bide guziak.

Ontaz ez jabetzea ametsetan bizitzea da; alkar engañatzen ibiltzea bezelatsu.

Onela jarraintzen du «Zeruko Argia'ko» editorial-egilleak:

«Askotan esaten digutena esatea ez da batere arritzeko: idatzi eiguzute euskera errezagoan. Ez degu olakoren eta alakoren euskerarik ulertzen». Amaika aldiz astindu dedan pertza auxe! Konturatzen geranerako oz ote da beranduegi izango?

Beldur au barre-muiñetaraiño sartua daukat. Oso zentzu gutxi ikusten det gure artean. Len irabazitako saillak galtzen ari gera. Geure erruz, geure kulpaz guzia. Aurrera egin bearrean atzera egiten degu.

Barkatu amets itza sarritxo aitatzea. Nere lagun «Xalbador» bertsolariak au esaten zidan oraintsu: «Penagarria da, baiña ego-aldeko euskaldunok ametsetan bizi zerate».

Beste zati bat «Zeruko Argia'koa»: «Ez da aski norberak idatzitakoa norberak ulertzea. Irakurleak jaso bear dute idazleak ipiñitakoa». Jakiña ba. Beste gaiñontzean, itxasoan ikazkintzan astea bezela da. Ontan ari gera aspalditxoan: itxasoan txondarrak sutu naiean.

Ba-du pixua ondoren datorrenak ere: «Ez dakigu askok antziñako liburuetako euskerarik ikasi duten ala ez. Gaurko erriak ez dietela ulertzen; au da dakiguna. Gaur itzegiten dan euskerarengandik ez duela geiegi urrundu bear euskera batuak, uste degu. Euskera batutzea ez da ilda dagoen mintzaira bat berpiztea. Bizi dan zerbait berdintzea ta indartzea baizik». Auxe bai erantzunik gabeko egi borobilla!

Len esan degunez, kultura-bideak erderaz izan ditugu, ta ala ditugu oraindik. Euskaltzale sutsu batzuk bakarrik dakite antziñako liburuetan agertzen dan euskeraren berri. Zenbat izango gera, geiena jota ere, Axular baten edo Etxepare baten lanak ezagutzen ditugunak? Zenbat Mendiburu'ren eta Kardaberaz'en lanak irakurri ta milixkatu ditugunak? Nun da gure zentzua, gure talentua, erria barau bizian dagola ez jabetzeko? Itzegiten degun euskerarengandik ez ote gera kilometro askotara urrundu?

Zer gertatzen da gero? Gerta bear duena. Ez dago beste biderik. Dakigun pixka erderaz ikasi degularik, eta dakigun euskeran idazten etzaigula ikusirik, itxu-itxuan berriro erderara dijoala jendea. Ontan zazpi milla buelta ematen dizkigute mugaz aruzko anaiak. An, sikira, ez dira erriarengandik ainbat urruntzen. Irentsi ezin lezaken janaririk ez diote ematen erri-irakurleari.

Merezi du, bai, Irailla'ren bosteko «Zeruko Argia'ren» etxe-idazkia irakurtzeak. Irakurri ta ausnartu, bide batez.

Ito-larrian dagon bat bezela aurkitzen da gure euskera. Gure itxas-ertzetan alako bat ikusten danean, salbatzera alegintzen da jendea. Uretatik ondar gaiñera atera, gorputz zatiak igituran (mugimentuan) jarri, aize eman, egin bear diranak egiten dira bizia izan dezan. Gu berriz, ia itoan dagonari betiko urpera joan dedin laguntzen ari gera.

EIZMENDI'TAR IÑAKI, «Basarri»

Laterazko Izen-jokuak Gurean

Oartu nazanez, oldozketan eta oldozketan, ara nola diran euskeraz laterazko izen jokuak euskerara igarotzean. Utsuneak ba'legoz, ez bai dot dandana aztertu, beste batzuk neke andi barik igarri leikee.

Lenengo Izen-jokua.—anima,ae = anima, arima.—ecclesia,ae = eliza.—missa,ae = meza.—cella,ae = gela.—castania,ae = gaztaiña.—lixibia,ae = lexiba, lixiba.—causa,ae = gauza.

Ikusten danez, lateraz lenengokoak, «a'gaz amaitzen diranak, euskeraz «a» egiten dabe.

Bigarren izen-jokua.—mundus,i = mundu.—angelus,i = aingeru.—fatum,i = patu.—horologium = erloju.—sucus,i = zuku.—fiscus,i = zizku.—caolum,i = zeru.—modus,i = modu.—filum,i = firu.—sabbatum,i = zapatu.—locus,i = leku.—hortus,i = ortu.—damnum,i = damu.

Irugarren izen-jokua.—pax,pacis = pake.—rex,regis = errege.—altare, altaris = aldara, aldare.—crux,crucis = gurutze.—abas,abatis = abade.—virtus,virtutis = bertute.

Guztiok, norekian dabe ardatza, ta «is» amaierea «e» egiten dabe euskeraz.

sartago,sartaginis = zartagin.—vigo,virginis = birjin.—Bi oneik, norenkiaren «is» bukaera galtzen dabe euskeraz.

ratio,rationis = arrazoi(n).—leo,leonis = leoi(n).—potio,potionis = pozoi(n).—Oneik «is» galdu ta «io» ori euskeraz «oi» egiten dabe.

Laugarren izen-jokua.—saltus,us = zaldu.—portus,us = portu.—cantus,us = kantu. Bigarren ta laugarrengook euskeraz «u» egiten dabe guztiok.

Oarra.—Solum,i ta campus,i; solO ta kanpO. Biok, baiña, ez dira zuzenzuzenean lateratik euskeratuak, zentzuna ta esangura apur bat beste era batera artuta baiño. Beste bi dagoz «u» barik «o» amaierea egiten dabenak, zugatz-izenak biak: ficuss, us = piko ta fagus,us(i) = pago.

Bostgarren izen-jokua.—scabies,scabiei = ezkabe.

Oarra.—Laterazko «s» euskeraz «z» biurtzen da guztietan. Ta «r» gaz lateraz asten diranak euskeraz «e»'gaz asten dira.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

EGILLE BIKO ADITZAK

Ortik zearko idaztietan oartzen diran utsen artean sujeto biko aditzak idaztea da. Emen dakardazan geienak euskera ondo dakien gaurko idazle on ezagunai artutakoak dira. Beraz, toki batzutan bada be erriak erabilten dabezanak dirana gauza jakiña da. Ala be ezin ontzat emon daikeguz. Euskeraren gramatika legetan ez dago olakorik. Ta iñok ez beigu esan zera... gramatika legeak baiño erriak darabizen esakerak jatorragdirala, izkuntza kontuan izan barik asmatutako zerbait ez dalako gramatika, izkuntza bertan oartutako legeak baiño. Gaiñera autura atara dodazan esakerok aspalditik eta toki guztietan erri osoak darabilzanak ba'lira bape errazoi bakoak ez litzakez izango, baiña geienok erabilten ez doguzanak dira.

Txarto dagozan itzen eskuman parentesis artean doazanak guk ipiñi doguz; jakiña orretxek dira legezko itz jatorrak.

«Baiña ori bagenekigun (bagenekian) lehendik ere».

«Etziñan ba zu iritzi berdiñekoa orain urte batzuek bertsolaritzaren tonua obetu eta jaso behar zala zeniozunean (zenionean)».

«Etzara gogoratzen egun baten, Zubizar onduan igari egin gendulako, erropak zelan gorde zeunskuzun (zeunskuzan)».

«...eta euskal kantuak indar aundia artu duela esan genezakegu (genezake)».

«...eta orain or doa zuk aspalditxo bialdu eustazun (zeunstan) izkirimia».

«Egia bi esateko bide ederra eman zindazun (zenidan)».

«Ba gandekigun (ba-genekian). Danok gendekigun (genekian) Arrua'ko Ostolaza txikia oso arrijasotzaille ona zala».

«Aundia bota eutsozun (zeuntsan) Pellotxu».

«BAT» mugitza

«Aurraitz» idazleari bein irakurri neutsan, zera... BAT mugitza premiña barik erabilten genduala sarritan, erdel oiturari jarraituaz. Itz au zenbaki lez erabiltekoa zala, gauzea «bat» zala ta ez «bi» edo geiago adierazo naian. Beti ez da errez izango, niretzat ez beintzat, BAT au erabilli bear dan ala ez jakitea, baiña ondorengo esaldietan orren ordez A mugitza esan bear dala esaten ausartzen naz. Parentesis artean sartzen dogu gure ustez esan bear litzakena.

«...il ondoz, zaudeneko ortan Zeru bat (Zerua) dala adierazoz».

«Pake bat (pakea) sortu zait, oskarbi orren pakea».

«Liburua itzetik ortzera irakurtzea atsegin bat (atsegiña) dela esan ondoren...» (atsegin zaidala, obeto).

«Saleroste gaietan izen aundi bat (izen aundia) artu zuen...»

«Marrazki on bat (ona) beti izango da gauza zoragarri bat (gauza zoragarria)».

«Urtain'i bozealari on bat (bozealari ona) izateko doaia eman badio zer dauka zer esan notario edo obispo batek».

«Orain Ameriketara joatea, aldameneko tabernan baxo erdi bat (baxo erdi) ardo eskatzea bezela...»

«Rusia'ren gaitza eta aurreratu eziña menderatzeko demokratizatze bat (demokratizatzea) eskatzen dute».

«Baiña prozedura onek eta exegesi modu onek ba du alako zurruntasun bat (alako zurruntasun) faltso usai bat (alako faltso usaia)».


«Literatura mueta berezi bat (berezia) dira Ebanjelioak».

«Berezitasun horrexek eman ohi dio, hain zuzen artista bati besteengandik aparte den nortasun eta indar bat (indarra) eta estilo partikular bat (estilo partikularra)».

KAMIÑAZPI

POZAK ETA KEZKAK

Emen agertzen dogun editorial au, «h» batzuk kendu ezkero, geuk bere izenpetuko geunke. Baiña ez doguz gauza batzuk ulertzen: ori ba'da zuzendaritzakoen iritzia ta erriarentzat idazten ba'da, nola sartzen dira alboan eta onartzen «euskeranto modoilloan» egindako zenbat-gura lan? Iritzi zabalekoak ala jaun bat edo biren lokarria?



Il onen 4'ean, arratsaldeko 4'tan, egin zuen azkenengo batzarra Euskaltzaindiak Gipuzkoako Aldundegian.

Deustoko ikastetxearen eskubidea alpatu zen beste gai askoren artean. Euskaltzaindiaren agiri bat behar luketela, alegia, euskera irakasteko gai direnak esaten zuen eskabideak.

Onartua izan zen eskaera jakiña danez. Baiña arazo au tajuz moldatzeko aurrez gauza ondo pentsatzea eta aztertzea erabaki zuen. Agiri orren jabe egiteko zer eskatu ikustea, alegia.

Arrazoizkoa Deustoko ikastetxearen eskabidea. Baita Euskaltzaindiaren erabakia ere.

Behar beharrezko dugu euskera jakitea eta euskera batu-bidean jantziak egotea euskera irakasten diardutenak. Bestela ez da iñoiz ere iritziko erriarengana euskera jatorrik eta batukik.

Baiña ez dezagun ahaztu gure erriaren egoera. Gure erriak ez du ikastolarik izan. Erderazkoak izan ditu eta dauzka kultura-bide guziak. Etxean eta kalean ikasitako euskalkia besterik ez daki.

Orregatik askotan esaten digutena esatea ez da bat ere arritzeko. "Idatzi eiguzute euskera errazagoan. Ez dugu alakoren eta olakoren euskerarik ulertzen".

Ez da aski norberak idatzitakoa norberak ulertzea. Irakurleek jaso behar dute idazleek ipiñitakoa. Kontu aundia eduki behar da beraz. Are gehiago irakurle sail aundi batentzat idazterakoan. Erri xumearí idazterakoan batipat.

Ez du gaia uskeritzen enskera errazak. Esta sakontzen ere euskera zaillak. Esta euskera edertzen eta batutzen erdal-itz eta joskeraz beterik dagoen euskerak ere.

Es dakigu askok antziñako liburuetako enskerarik ikasi duten ala ez. Gaurko erriak ez diotela ulertzen dakigu guk. Gaur itzegiten dan euskararengandik ez duela gehiegi urrundu behar euskera batuak uste dugu. Euskera batutzea ez da ilda dagoen mintzaira bat berpiztea. Bizi den zerbait berdintzea eta indartzea baizik.

Au ez bezate aharzu izkuntzalariek. Eta au ez bezate baztertu idazleek. Irakurleentzat idazten da. Au ahaztu zale askori edo irakurleen izkuntzarik ez dakite bestela. Euskeraren mamirik eta joskerarik ez dute artu agian.

Erriak salbatuko du euskera. Baita euskera batua ere. Erriak muzin egiten badio, erriak erabiltzen ez badu, galdu da gure euskera.

Gogoan eduki dezagun gure erriaren egoera. Es ditzagun pedagogi eta soziologi arrazoiak ahaztu. Idatzi dezagun gure aldizkarietan erriak jaso dezakean euskera batuan. Idatzi dezagun rehienak ulertzeko eran.

* * *

Euskaltzaindiaren aurka gabiltzala beti, norbaitek esan du, baiña gu ez gabiltz ezeren aurka, euskerearen alde baiño. Euskaltzaindia, euskararen aldeko alkarte bezela ikusi nai genduke. Bere arduraren egiten diran ikastaroak, arduradun edo erantzuleak izango ditue, gure ustez. Baiña alkarte orretako arduradunak ba al dakite «programa» oien izatearen barri? edo ikastaro orreitan erabilten diran gaien barri? Guk bai, ta ez goaz geiago esaten. Gero, kalterik ba'letor ez daitela alkartearen izenik erabilli; erantzuleak izango ete-dira erantzule? Alkartearen ondamendirik ez genduke nai, baiña euskerearenik gitxiago. Ez dogu beti «amen» esango... emakume melena dantziri batzuk asarratu arren.

* * *

Donosti'n argitaldu dan alkarrizketa batek arritu gaitu: Bizkaieraz, euskera jator eta ederrean itz egiten daben Zenarruza jaunari, euskerantozko itzak ipiñi dautsoez ezpanetan, euskerantozko erantzuak. Berak be ez leuke ulertuko izkuntza ori. Argazkian «biotzez» jartzen eban berak, baiña «bihozketa» eta olakoak agertzen dira alkar-izketan, onen antolatzailleak tartetik iges eginda.

Bietatik bat; edo egilleak ez diño egirik, edo guk ezagutu gendun Peter T. Zenarruza a beste bat izan zan... arek euskeraz egiten eban-eta.

* * *

Aita Villasante'k «Correo Español» ean diñoanez, gazteak onartu dabe «Batutzat» batzuk asmatutako euskerantomordoilloa. Ederra kontua! Guk ezagutzen doguzan mordoillo-zale batzuk gazteak ba'dira, gu geu poxpoliñak gaituzue. Baiña guk ez gendun, orain damutzeko, ezertariko «zinik» egin.

* * *

Aramaio'n izan dan batzarraren aurrean, bertako parrokoak zerbait esan eiban, Eleiza'ko itzaldian. Arrazoi aundinagaz, euskera-euskerearen alde egin eban, baiña euskeranto-zaleak asarre! Polito dator errikoen iritziak jakitea, baiña norberekerian dabiltzanentzat, alperrikoa!

* * *

Azpi-jokoz Lekuona jauna bota ebenetik, euskaltzain eta laguntzaille zintzo asko ez ei-dira joaten batzarretara. Ta ara, besteok bakarrik aurkitu diranean, alkarrekin asarre ta burrukan; izkanbilla ta zarata, «bulegoak» esan ez ba'dausku be. Eten zaleak barruan daroa betiko eten bearra!

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

GURE BIDE GALDUAK...

Gizon guztien bizitzak, bere ostopo eta arriskoak ditu. Eta gazteen bizitzak be bai. Zer diñoe gaurko gazteak?... nun ezarri dabez euren asmo ta itxaropen guztiak?... zelan ikusten dabe etorkizuna?...

Olako galderak oso zaillak izaten dira gaztediarentzat. Gure artean gazte asko dabil, eta askotan gure gazteak ez dakie norantz zuzendu euren pausoak. Zer egin ez jakiñik, bideetan zear dabiltza. Sarritan, gaurko gaztedia guztiz galdua topaten dogu. Eta ori ez da gauza ona.

Mundu ontan, bizitz ontan, lanbide bat beteteko indartsuak izan bear gara; eta batez ere gazteak. Gure nikuetan gauza asko doguz, eta gauz oiek gure aldetik erantzun bat itxaroten dabe. Eta gure erantzun ori ez da aurkitzen itz politetan, egite eta arazoetan baiño. Gazte askok ez dabez gauza oneik ulertzen, eta euren gaztetasuna gaiñezko gauzetan igaroten dabe.

Ez, gazte, ori ez da gure eginbidea osatzea. Eta au JAKIN BEARREZKOA DOGU! Zer egin gure gaztetasuna erakusteko?... GURE BIDE GALDUAK ZUZENDU! Eta au ez da gauza erreza, ori bai-ta-kit.

Izugarrizko lana egin bear dogu zeozer lortu nai ba'dogu. Eta... ainbeste gauza lortu bear dira! Gure asmoak, gure itxaropenak... zergaitik baldu? Gure bidea zuzendu bear dogu. Ezer ez egiteko... zertarako bizi zara?

Ez gazte, gauza guztiak ez dagoz ondo. Gure artean «injuztizi» edo bidegabekeri asko ikusten dira; maitasun gitxi agiri da gizonen artean; erri askoetan zapalkuntza besterik ez dago; Kristo'k esan eban lez, gure artean otso asko topaten dira ardi zuriz jantzita...

Eta gure lana or dago. Or entzun bear dogu munduaren deia, etorkizunaren deia. Entzuten al dabe gaurko gazteak dei ori?... Nik, ezetz uste dot. Eta tamalgarria da benetan jazoten jakuna.

Zergaitik gazte koldarrak?... zergaitik ainbeste gazte garaituak?

Ez, adiskideak, gaurko gaztedia arazo oiekaz guztiz astu da. Or dabiltza danok, gaur eskubirantz ta biar eskerrerantz. Ez dakie zer egin, ez dute berezko bururakizun edo «idearik», ez dira ezer. Bizitz ontan, ez dabe asmorik.

Bai, orregaitik ainbeste «droga» eta danok dakigun gauza asko...; orregaitik ainbeste zentzungabekeri gazteen artean; orregaitik ainbeste aal-eziña.

Gu, gazteak gara. Eta Jaungoikoari eskerrak, Erri kristiñau batean jaio gara. Orregaitik zeozer egin bear dogu. Ez patxadan bizi beti. Gaurko gaztediaren artean igarle asko erabilten dira: Markx, Che Guevara, Camilo Torres, Marcuse... eta abar. Txarrak al dira?... Ez! Igarle oiek, EGI AUNDIAK ESATEN DABEZ, baiña batzuetan guzurrak be irakasten dabez.

Gure bizitzan igarle bat dogu: Kristo. Eta Kristo'gan dago gure siñesmen guztia. Bera izan da lenengo askatzaillea, Bera izan da lenengo iraultzaille edo «errevolucionarioa», Bera izan da gure eredu bakarra. Kristo'ren bidea jarraitzea ez da erreza, baiña gure bizitza beteteko eta mundu barri bat lortzeko nai ta naiezkoa dogu.

Gure gaztedia LOTAN DAGO. Ez da oraindik esnatu, baiña esnatu bearko da. Patxadan bizitzea ez da gure egin-bearra. GAURKO GAZTEAK BA'GARA, ITUN BAT ARTU BEAR DOGU!

Bai, gazte, aukeratu zazu zure bidea. Alde batetik lana, izardia, ordu latzak, itxaropen barriak, asmo sendoak, egun illunak, besteentzat maitasuna, ostopo asko... BAIÑA AZKENEAN ZORIONA!

Beste aldetik; bizi-modu lasaia, arazo errezak, egun argiak, atsegin asko..., baiña barrundik EZER EZ DA AUKRITZEN!... GAZTE ILLUN TA MAKALA!

Bai gazte, au da gure bizitzan jazoten jakuna. Eta osabide bat bear da... Euskaldun gazteak, ERABAKI BAT ARTU DEZAGUN!, eta erabaki ona izan dezala. Ez, ezin doguz begiak itxi edo burua aldendu. Ori abereak be egiten dabe. Gure gaztetasuna gauzarik ederrena dogu. EZ DEZAGUN ALPERRIK GALDU! Bizitz oso bat aurretik dogu, eta ZER EGINGO DOGU URTE ONENAK GALTZEN BA'DOGUZ? Ez dakit.

Gauzea ez da erreza, gaurko egunetako gaia da. Eta ez makala! Gure gazteak euren bide galduak zuzendu bear dabez. Eta Kristo'k irakatsi eban bidetik jarraitu bear dabe. Or dago gure zer-egiña, eta olan zoriontsuak izango gara.

Euskaldun gazteak gara gu
Gure ikurriña Kristo dogu.

Noiz munduan zuzentasuna?
Noiz gizon guztien batasuna?

EZKAURIATZA'TAR XABIER

DEUSTU'ko IKASTEGI NAGUSIAN EUSKERA IRAKASLEENTZAT IKASTAROA

Ikastegi nagusiko ikasle batek eskatu daust, Deustu'ko Ikastetxe nagusian, Irailla'ren 27'tik Urrilla'ren 4'rarte izango dan ikastaroaren barri emoteko, gure izparrangian. Au ontzat arturik, itaun batzuk egin dautzadaz.

—Nork antolatu dau?

—Euskal Kultura Mintegia, deritxon ikasle taldeak, euskerazko ikaslanak eta euskal jakintza geiago zabaldu ta indartzeko.

—Zergaitik gogoratu jatzue au antolatzea?

—Guk, goi-ikasle legez, utsune aundi bat aurkitzen izan dogu izkuntzaren irakasketan eta beste euskal-jakitzako arloetan. Orduan, alkarte bat egitea gogoratu jakun, au egin genduala 4 urte dira, eta onen bidez ikasteko geure izkuntza ta euskal-jakintzatan sakonduteko, onetara erriarentzat gertu egoteko, bier egunean, emen ikasi doguna erriaren eziketarako erabilli nai dogu-ta.

Gero ikusi genduan, euskeraz ikasten asiten dala ainbat jente, baiña bidean geratzen dirala geienak. Sakondurik au nondik datorren, metodoak esaten dabena gitxi zala erabagi genduan, eta Euskal Kultura Mintegiak, argi ikusi eragin nai dau, euskera ikastea beste edozein izkuntza ikastea legez dala; gaur irakasteko bideak leen baiño errezagoak direala kontuan artu bear dogu, euskera ikasten gagozanok arin eta ondo ikasi nai dogu, ori geure eskuetan dago, baiña baita ere irakasleen gogo onean bere. Irakasketa barriko metodoari ondo jarraitzen ba'dautse, errezago izango dogu ikastea.

—Zelan, edo zertzaz izango da kursillo ori?

—Euskaltzaindia'gaz artu emanak izan doguz, eta ikusi dogu berak be irakasleentzat gertakizun eta eziketa obea nai dabela, alan ba, bere aldetik geuk itxaroten izan dogu besteko laguntza eskeñi dausku, eta ikastaldi onen joan etorriak aita Patxi Altuna'ren eskuetan itxi doguz, euskeraren eta pedagogiaren aldetik jakintsua dan ezkero, uste dogu berak indartuko dabezala ara datozen irakasleak.

—Zer lortuteko asmoa daukazue onegaz?

—Irakasleen jakintza osoagoa izan dagiala nai dogu, olan euskera ikastea errezago izan deiten.

—Eskatuko zeuskioe gure irakureleri zeozer?

—Bai, euskerazko irakasle diran daneri, ikastaldi onetara etorri daitezala; interesgarriak izango dira ba danen eretxiak, aurrera eroateko gero jazo leitikezan arazoak.

Eta beste daneri, argi ikusi dagiala, ikastetxe-nagusian, bideak irigiten doala euskerea. Ni gaur euskera ikasten ba'nago, Euskal Kultura Mintegian lan egiteko bear izan dotelako da, alan euskal erriarentzat neure ikasketak egiteko.

Esan egiozue baita ere, euren eziketa euskeratzaz obetu nai daben euskaldunentzat be, beste ikastalditxo bat izango dala, alfabetatze arloan.

Aurrera ba irakurle, danok daukagu euskeratzaz zer egiña-ta.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

EUSKAL IRAKASLEENTZAKO IKASTAROA

Nork: **Patxi Altuna jaunak ematekoak.**

Noiz: **Irailaren 27'tik - Urriaren 2'raiño, Arratseko 6'etatik - 9'arte.**

Non: **Deustoko Ikastetxean.**

Eratzaleak: **Euskal Kultur Mintegiak, Euskaltzaindiaren zuzendaritzapean antolatua.**

Zertarako: **Izkuntza, Irakaskintza, Metodolojia osoa ta bereziki Euskararena ikasteko.**

Izenpetze-lekua: **Euskaltzaindian, Ribera, 6 - Bilbo, laneko orduetan.**

Ordain-saria: **350 laurleko.**

BITARTEAN AMETS

Nik ezagutzen nun olerkari arek, tripa aundia zun, illea luzea eta bizarra berriz, kokotzetik zintzilik nabarmen ageri zitzaion.

Bere amonak zintzoa zela zion. Izan ere, noizik beinka, luma arturik olerki batzuk sumatzeko jasatasuna artzen zun gizajoak. Gaiñera lan ori, beretzako, kezka bat bezelaxe zan.

Gaiak ez ziran mami aundikoak, garrantzidunak. Ori ordea, beretzako, ez zan bearrezkoa. Naikoa izaten zun, noizik bein, alua, zerriya, burgesak eta apaizak zaltzan sartu eta orrekin kito egin. Ori bear bat zan.

Berriz, kezka sortu zai zegon bitartean, oporketak artzen zitun. Jan eta edan, beribilla, pelota-jokua ikusi, zigarro-purua erre eta batez ere, tripa aundia benetan zaindu.

Egun batez, gogoratu zitzaion ordea, lendakari izateko jaioa zela, eta burua goi maillakoa zuela aitortzen zun.

Orain ere, amonak, jaramon egiñik, bere alde ateratzen da.

Ortaz olerkiak alde batera utzi, eta lana gogor egiteko asmoa artu zun. Beragaitik, bide batzuk aukeratzea erabaki zun: Euskera, ikastola, lantokiak eta izparringia.

Euskeraz itz egiten zun eta baita idatzi ere, ez ori euskaldun bezela bearrezkoa iruditzen zitzaiolako, baizik, orrela jendearengana irixtea errexago zelako. Ortarako ikastolak benetan ziren onuragarriak. Orrela aurrai emango zion berak nai zun edukazio edo gizapidea. Aurren aitak? Oiek naikoa dute umeak mantenidu eta apaintzea. Bereala gogoratu zitzaion ol edo pabriketan onbidez lanean astea. Bertan lau paper zabaldu bulla eta oiua egin eta amabitako tutua jo bitartean Oeste'ko nobela bat irakurri, ori zen bere lana.

Gaur egun, aspertuta dabil, bere ilusiorik aundiena zera da, egun batean kinielakin aberatzea, ez du ezertan siñisten. Kinieletan apika?...

Egun ori etorri bitartean amets egiten du.

Gerora izparringietan nota bat azaldu zun erderaz. Geroztik nik, ez diot bate jaramonik egiten.

R. ZAPIRAIN

ZERURAKO KARTA BAT

Xaixo, Jiri:

Ederto zagoz zu orain, zagozan tokian. Bete dozu emen zeure egin-bearra ta orain ortik be geuri lagunduten.

Gogoratzen zara askenengoz alkar izketa izan genduanean? Espetxetik urteeraren urtebetetzea ospatzen zenduan; egun zoragarria zuretzat. Euskalerriaren alde lanean jarraitzeko aske zengozan; zure gaztetasuna beraren alde emoteko gertu.

Goizean goixa jagi ziñan, Araba'ko Berguenda deritxon erritxoan; euskaltasuna il zorian edo ilda dagoan erritxoan.

Kepa, zu ta irurok ibillalditxo bat egiten joan giñan. Mendi tontor baten jarri giñan. Orduan erakutsi zeunzkuzun zure biotz zabala, andik ordu betera uts egingo eutsun zure biotz aundia. Erriaren alde egiteko zure asmo ederrak erakutsi zeunzkuzun Kepa ta biori. Ez zenduken iñorentzako gorrotorik, baiña erria ta zapalduak maite zenduzan (eta oraindiok emen ezin esan doguzan beste gauza asko be bai). Niretzat zure testamentua izan zan, zeuk igarri barik egin zenduan testamentua ta asken agurra.

Andik uretaruntz joan giñan. Bidean etorzan lagun batzuei azken agur au emon zeutzen (olakoxea ziñan zu-ta): «itotzen ba'naz, nere gorputza erre egin bear dozue!».

Lasterrera uretara salto egin zenduan eta, ezer esan barik, Jaunak bere besoetan artu zinduzan, «naikoa egin dozu» esanaz.

Egin ziran alegiñak alperrik izan ziran; ilda atara eben zure gorputz zarra; zarra, bai; barria Jaunaren ondoan daukazu-ta.

Araba'ko inguruetako erri areik biztutzeko itxi zendun an zure bizitza. Jaungoikoak bizitza eskatu eutsun erri arein alde emoteko, ta zuk: «zelan ez, Jauna? eutsi». Ziñismena dogunok, alaxe pentsatuten dogu. Ta zuk be ziñisten zenduan, ez aundikeriz betetako Eleiza onetan, baiña bai benetako Kristo'gan, erriagaz dagoan Eleizea'gan.

Utsune aundia itxi dauskuzu lagunen artean. Ez zenduan buruauzte aundirik egiten jokera au edo bestea dagola ikusten zenduanean erriko iraultzailleen artean. Zuk argi ikusten zenduan bidea; erriaren, langilleen, beartsuen alde, batera egin bear zan. Ez zenduken zeuretzako ezer bere. Zure gauzak danentzako ziran; batez bere zeure bizitza.

Utsune aundia itxi dozu zugaz mendira urteten eben ume mendigoi-zaletxuen artean be. Nire bost urteko anai txikiak Lander'ek auxe esan eustan il ziñan gabean: «orain, nun dago Jiri? Ez da etorriko geiago gugaz mendira?». Neukazan indar apurtxuekin auxe esan neutsan: «Orain zeruan dago geure zaiñ; bertatik lagunduko dausku erria jasotzen». Eta negarrari emon geuntzan biok. Kostako yaku utsune ori betetzen!

Beste alde batetik pozik nago. Zuk lortu dozu ain maite zenduan Aberri ta Askatasun ori. Erregutu egizu euskaldun guztiok bat eginda bizi gaitezan, zure antzerako jatorrak izan gaitezan, eta egunen baten danok Aberri ortan alkartu gaitezan.

A! ta emon goraintziak or dagozan beste burrukalari lagunei be, berez il ziranei ta burrukan il ziranei.

AGUR JIRI!! LASTER ARTE!!

ATANO

NUNDIK NORAKOA XI

«ATZERRI, OTSO - ERRI»

Gazteiz'en giñan, esanda dodanez, gure ikaskide arabarrak eta zazpi bizkaitar. Ume gorriak oraindiño. An apaizgai-etxe nagusian, beintzat ezer ez giñan, ainbeste ta ain andi ziran besteen aldean. Eurak sotanaz jantzita egun guztian. Gu, aldiz, brusa urdin bat aldean ibilten giñan, bazterretan autsak kentzen.

Ikasketak lenago bezelatsu. Latin, orduak eta orduak, literatura, Españi'koa (nork diño gu ez gareala unibersalistak?), matematikak eta beste. Irakasleak... guztibearrean. Bilbao'tar Pablo gizon atsegiña ta asko jakiña. Ansorena'tar Luis giputza, jatorra ta iñoren pentzura ibilzalea ez zan gizona. Platon-zale, egi-zale ta euskerazalea. Besteak apur bat arabarren kutsua artuta: itxuratiak, min labanekoak eta ganora gitxikoak... Euskalerria maitatzeko. Beste gauza askotarako, bai, antze ederbikaiña oi eben. Caput Castelli ez dakit, baiña odor Castelli, bai, itzala.

Gu txikiago ta ume ezerazago giñan eta oarkabe joan ziran gure egunak garai aretan. Jolasean, ikasten eta amesten igaro oi genduan egunaren zati on bat. Noizean bein nagusiago bat etorten yakun, gu bere babesean edo menpean artzeko bezela ta guk muzin egiten geutsen alakoei. Oso gitxi giñan eta gure egotaldiak ez eban zarata andiegirik atara orduan. Urrengo kursoan beste bizkaitarrak eta giputzak batu yakuzan eta esango dautsuet orduko jakingarriena. Bienbitartean neure gauza bat gogozatzea zillegi bekit.

Arabarrak beren lurraldean eta munduan egozan, gu bizkaitarren aurka. Gu zazpi baiño ez eta eurak guri geiago egin gura, nunbait. Astirotsuago azalduko dautsuet zer au, merezi dau-ta:

Bizkaitar eta giputzen aldean arabarrok ezjakiñago ziran, ume-aro aretan beintzat. Eskola gitxiago, jendartean ibiltzeko oiturarik ia bat ere ez. Araba'ko lautadan aziak, arima ere lau-lau eben, agian. Inguru motzak eta beti batekoak izan bere gogoalderdiak. Lurraren margoa zuten gogoan ere, antza. Baltz-illun, orlegirik gabekoa. Aspergarria. Zibilizazioa zer zan ez ekienak. Edozein uskeri ikusita arritu ta zurtu oi ziran. Subdesarrolado samarrak gure aldean, orduan. Ta jakiña eurak euren konplejua kentzeko alegiñak egiten ebezan. Euskalerria zala-ta sekulako astakeriak esan, gure istoriari buruz iñoizko ta iñungo astakeriak jalki ta euskerari buruz parra ta irri, isekaz. Euren ezereza gure nortasuna ukatuaz aurrera atara bear, gizajoak. Nagusiak ere alakotsuak. Danak ezpal batekoak. Jakiña, irakasle bikaiñak ere izan genduzan, gorago aipatu dodan moduan.

Bitartean ni barruz irakiten eta tripak jaten, aien lelokeriak eta zentzungabekeriak entzunaz. Nire inguruko bizkaitarrak ez eben murtik ere egiten eta ni are amorratuago, burua onik atera bearrez. Bein batean itzalezko eztabaida euki genduan: geroago apaiz ikasteari itxi eutson Basauri'ko Arteaga'k eta nik. Bero-bero jarri nintzan gurearen alde. Ta asto andi aiekin zer egiñik ez egoala ikusirik, erabakia artu ere bai, sendo ta iraunkorra. Bein ta betikoa.

Ikastaroa amaitzeko zan eta gerorako itxi neban nere asmoa, mamitu gabe. Udan, ba-dakizue, olgetan eta gogoetan, ta uts egin neban. Urrengo ikastaroan, giputzak eta bizkaitar guztiak etorri ziranean ekin neutson gogor bearrari ta neureagaz atera nintzan. Aldi ori zeatzago azaltzea merezi dau-ta, urrengo idazkian zeatz-meatz jakiñarazoko dautsuet orren barri. Luzatzen eta luzatzen eta azkenean orretxen jakitun ipiñiko zaituet, len legez Bergili'rena gogora ekarrita: «Infandum, regina, iubes renovare dolorem, quaeque ipse miserrima vidi» (Aeneidos).

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

KONTU KONTARI

IPARRA GURA LUKE...

Orain berrogetazak urteak dirala ondo gogoratzen naiz! errietako ta baserrietako euskaldun jatorrak, ez ziran ausartzen euskeraz itz egiten:

—«Guk ez dakigu euskera garbia egiten da...» esaten eben, orduko euskal-aize garbizaleeri buruz.

—Baiña, jaunak ez al dakizue «caballo» zaldi dala? «naboa» arbia dala? «tiernoa» samurra dala? «lokoa» zoroa dala?

—Bai, ori bai!

—Ba... orixe da nai doguna. Dakizuena, dakizuen lez esan dagizuela, ez eztakizuen eran. Es egizuez, geure-geureak diran itz politak lizundu!

—Ori be egia da —esaten eben—. Egunero irakurten dogu «Kirikiño»'ren EGUNEKOA ta polito sartzen jakuz buruan gauzarik asko, arrasoi andiarekin irakasten dauskulako, ta geure euskera jatorrean egiten dauskulako. Orraitio... alakoak be irakurten doguz: «Ikurton Deunak eta Doipurubaren Onespena artuta il zan». Azken itzetatik igarten dogu zer esan nai daben, baiña...

—Zer ataraten dozue ba, azken itzotatik?

—Eleizakoak artuta il zala.

—Oori dok! Neuk be alantxe ikasi neban; zuek be alan esan, errezago ta errikoiago da-ta. Bai jauna, bakotxari berea!

Orrelan ziran, orain berrogetamar urte inguruko auziak.

Gaur, beste alde bateko aizeak jo gaitu. Len ipar-aizea zana, gaur ego-aize biurtu da, gaztelaize. Len, azken itzetatik baiño ez bada be, ulertzen ebenak, gaur ezin dabe ulertu tautik, aurretiko ta atzetiko itzak irakurrita be.

Neure denboran, alderdikeri (esciciones) asko ikusia naiz, uskeri bat aitzaki arturik. Neri, alderdikeri orreik, min emoten eusten, banandu egiten giñoezalako.

Ego-aize edo gaztel-aizeok baretuko al-dira, denganiñoak nai ba'dau.

Nor geiagoka ibiltzea etzait atsegin izaten, gauza askotan. Esatebaterako: Iko-gañean nor luzaroago egon; nork garagardo geiago edan; nork txixa urrunago egin eta abar eta abar. Etxataz atsegin leiaketa orreik. Ezta be, nork geiago jan, egiten diran neurketak.

Guzti orreik, osasunarentzat kaltegarri diralakoan nago.

Ala ta be, nire aburu au ezagutzen ez ebalakoedo, auxe esan eustan ezagun batek, gauza andia adirazoten eustalakoan:

—Irakurri dok au?

Eta kanpotiko egunkari bat eskiñiaz yardetsi eustan:

—Irakurri egik au: «Un hombre se comió UNA TORTILLA DE CINCUENTA HUEVOS».

—Tiira ba! —esan nautson—. On egin dagiola! Baiña... gizon orrek jango ete leukek «HUNA THORTILLA DEH CHINCUHENTA HUHEVOS»?

Ez dakit. Aintziñako kantatxu au, bai:

Nere maite polita
Donostian dago;
Iparra gura luke,
Mendebala dago.

ABELETXE

ALKAR-IZKETAN

(Euskeraren etorkizuna dala-ta)

—Lengoan, Anton, zeozer geyago esateko gogoagaz amaitu eindun alkar-izketa-ta, zer izango ete zoan yakingura biziagaz etorri nok.

—Ba, esango daustat. Ik aitatu einduzan eskubideak gizon guztienak dozak eta, guk euskeldunok be eukiko yoguzala, gizon goazalako espadok be. Baña nik ikusten yoadana auxe dok: Askok eskubide oneik aintzat ez yoezala artzen. Eta ori barik Euskeraren etorkizuna illun xamar ikusten yoat.

—Ori oingo gatxa eztok. Ikusik Adema, Bayona'ko kanoniguak, Azkue yaunari 1896'gn idazten yautsoana: «Oraiko modu ta lege suerteekin, ez or ez emen Eskuarak ez dezake luzez iraun». Ordutik ona zaparrada asko yausiarren, Euskerea ondiño bizi dok, gauza arrigarria izan arren be. Belutxo, baña euskeldun asko konturatu dozak Euskera galdu ezkero «Euskeldun» izena guzurrezkoa izango litzakela, eta orregaitik edo su ta gar Euskeraren alde yokatzen yabek.

—Izan be, ondo begiratu ezkero Euskeraren iraupena ondo arrigarria dok, katuen antzera zazpi bizi yaukoazala yirudik.

—Kardaberaz agurgarriak be bere aldian orixe idatzi yoan.

—Zer esaten yoan ba?

—Euskerearen iraupena mirari andi bat zala. Emen bere itzak: «Euskera zoil-zoil, bakarrik edo nik eztakit nola bizirik ainbeste sekulatan egon dan eta dagoan; añ berez ta añ garbi ta garbi bere erio ta arerio guzien damu gaiztoan badere. Ala ere asko egieki galdu da. Baña ori ezta euskeraren, ezpada euskeldunen desonra: bada oiek polikitu, apañdu ta edertu bearrean lotsarik gabe berek beren nagitasunez, itxustu, larrutu ta desegin dute».

—Itzok gaurko egunerako be elitzazak txarto etorriko.

—Or ikusten dok Euskeraren arerio txarrenak bertokoak dozakala.

—Etxeko arerio beti dok txarrena, gorputzagaz bardin gertatzen dok: barrutik datorren gexoa bildugarrien... Auxe dok Euskerearen gatxa be.

—Orretan ñagok neu be. Euskaldunok geure eskubideak aintzat artzen ezpayoguzak besteai aintzat artu eragiten ibiltea amesetan ibiltea dok.

—Gai oneri ekitea atsegin izango litzakek baña. AGUR'ekoak labur idazteko esaten yauskuk eta urregoan yarraitzea obeto izangok. Ezteritxok?

Bai, yatekoagaz orixe egiten yoguk, egun baten yan ezin dana urrengoarako itxi.

—Bitartean ekin gogor Euskeraren etorkizuna geure eskuetan eta ezpanetan **yagok eta.**

—Ekin ba gogor, nire lagun abade batek esaten yoan ba, ekin'ek **ez yaukoala amairik eta atzekoz aurre irakurri ezkero** nike **dokala, ta** nikek **gerkeraz «garaitza» esan gure yoala.**

—Alantxe dok, ekin barik ez yagok garaitzerik. Eta oin agur urrengorarte.


—Agur ta ondo ibilli.

URIGOITIA

ITZ-EUNDUAK

(XVI)

Etxebarria'tar Juan Anjel



AGERBIDEA

ZEARRETARA. — A: Garai.—B: Bizkai'ko erria.—D: Bizkai'ko erria.—E: Ereskia (a. a.); Konsonante; Gitxitxeko atzizkia.—G: Aginkada; Jarri (a. a.).—I: Lengoan; Gar.—J: Atera; Gabeko jatordua.—K: Uts esateko atzizkia; Bokal; Konsonante; Leku orretan (a. a.).—L: Bizkai'ko mendia.—M: Gizon-izena.—N: Piñu (a. a.).

GOITIK BERA.—1: Deadar.—2: Naparroa'ko erria (a. a.).—3: Adin andikoa.—4: Konsonanteak; Konsonantea; Bokal; Konsonanteak.—5: Margo bat; Ekarten nau.—6: Orkoa; Gaixo (a. a.).—7: Uger egin; Senitarteko (a. a.).—8: Kanpo; Konsonante; Konsonante; Atzizkia.—9: Okela-saltzaillea (a. a.).—10: Ugari.—11: Erri.

XV'aren agerpenak:

Zearretara = Gu.—Kako.—Biraka.—Loratu; E.—Gal; Iu; Ede.—Napar; Emari.—anidA; Zotin.—Eka; Oi; Iso.—O; Arbulu.—Gobele.—Zeru.—Ai.

Goitik bera = nA.—Gane.—Lapiko.—Bolada; G.—Kir; rA; Aoz.—Garai; Orbea.—Ukatu; Iberi.—okU; Ez; Ulu.—A; Emolle.—Edatsu.—Erio.—iN.

TXORI BATEN GOGOETAK

Agiñalde'tik.

Laugarren semea egiteko zorian zala, Andere'k Andra Mari'ri alabatxu bat emon ekiola bein eta barriz eskatu eutson. Iru mutil zituan yadanik, eta leenengoa izan ebanetik, sarri irrikan ebillen alabatxu bat izateko, baiñan bere naiak ustel urten yakozan, eta iru seme izan zituan.

Bizitza zailla gertatu yakon Andere'ri. Bere senarra erriko otzaregillea zan, baiñan osasun urrikoa izanik, askotan lan egiteko ezindua egoan, eta Andere beartua izan zan, erriko zenbait etxeetan orduka yardutera. Gero, irugarren semea doi-doi ibilli zitekeala, arazoak are txarrago billakatu ziran, bere senarra gaizki gaixotu bait-zan. Illabete nekagarri batzuk igaro ziran, eta aurdun aurkitu arren, etxekoak eusteko lanari iñoizkorik bortitzen ekin bear izan eban.

Senarra il yakonean, ezin eikean astirik izan bere oiñaze bizian murgilzeko, ta malkoen ixuri aringarria billatzeko. Illetak amaitu baizen laister, barriz be orduko lanari ekin bear izan eutson, eta olan zenbait aste igarorik, aur egiteko ordua eldu yakon. Alabatxu bat izango ba'litz bederik...!

Baiñan arazo ontan be ez eban atsegiñik idoro, ta illuntze batean beste mutil bat jaio zan. Etsipen utsaz Andere'k ez eban bere seme jaio barria ikusi gura be, baiñan gero bere gogorkeriaz damututa, umetxua besoetan artu ta une luze batez aurpegiño samur ua begiratu eban eta begiak seintxuagandik kendu eziñik, bere senarra zanaren aurpegi ber-bera ikusten ebala iruditu yakon, eta orduan malkoak eutsi eziñik, estu-estu biotz-ondoan besarkatu eban, iñotsola:

—Neure aingerutxua, aita zanaren antzekoa zara, ta bere izena eroango dozu, bai, Yoseba izendatuko zara, ta bera bezela erriko otzaregillea billakatuko zara. Aita zanaren lanabesak neronek gordeko dautzudaz, eta egunen batean Bizkai'ko otzaregillerik trebeena izango zara, ta leku guztietatik gurera etorriko yakuz munduan iñoiz izan diran otzararik onenak erostearren. Bai Yosebatxu, aitaren tresnak zuretzat gordeko dautzudaz.

Andik laister, Andere barriz orduka lanean asi zan. Etxetik urten baiño leen, seme nagusi biak ikastolara biali oi zituan eta txikiak barriz, semerik gabeko auzoko emakume batenera. Eguerdian etxerako bidean artzen zituan eta arratsaldean, goizekoa barriz ere. Andere gaixoak goizean eta arratsaldean yardun bear izaten eban, etxean bearrezkoa zana irabazteko. Zorionez, maratz eta lan-zalea izanik, etxe askoetatik dei egiten eutsoen.

Zenbait urte olan igaro ziran. Yoseba gero ta aita zanaren antzekoagoa. zan Andere'k seme guztiak asko maite zituan baiñan berak ez aitortu arren, Yoseba'ganako maitasun bereizi bat izaten eban, seme txikiena zalako nonbait, edo-ta bere aurpegiñoak senar illaren irudia gogora ekarkiolako. Dana-dala, Yoseba olde onakoa zan, eta etxeko kutuna izan arren, mutil xalo ta zuzena etorren. Ikastolarako garaia eldu yakonean, bere anaiek egunero erriko ikastolara eroaten eben. Asieratik nabari zan Yosebatxu mutil oso argia zala, ta sarri bere burutxua ikaslanen gaiñean makurtuta ikusten zan, begietatik adimen argiko txinpartak ixurtzen yakozanala.

Bere kutuna onela ikustean, Andere'n biotzean zorionezko zirrara bat sortzen yakon, bere kautan iñoala:

—Nire Yoseba'txu maitea, egunen batean aita zanaren langintzari yarraituko dautsozu ta Bizkai'ko otzaregille onena gertatuko zara. Buru argikoa zaranez, langintza laister nagusituko dozu, ta zenbakietan ez zaitu iñork atzean itziko. Garaia eldu dakizunean, aita zanaren lagun aundia zan, Mauri, Gernika aldeko otzaregille trebearekin ikastaldia izango dozu. Gero, nik erakutsiko dautzudaz Naparra'ko zein errietan zure aita zanak gaztain-adar onenak erosi oi zituan...

Gero, Andere arasa batera yoian eta estalkia jasorik, bere senarra zanak itzitako tresnak maitekiro begiekaz laztantzen zituan, zorion bakan bat bere gogoaz yabetzen zala.

—Ba'dakizu gauza bat seme? —sarri esan oi eutson Andere'k bere kutunaren aurpegi xotillari begiratuaz— Soiña nekatzen asi yat ainbeste orduetan lan eta lan. Yauna'ri gauza bakar bat eskatzen dautsot... osasuna emon dagidala zu ta zure anaik bizibide bat aurkitu dagizuen arte... gero, ba-liteke Yauna'k atseden pixka bat emon dagidan, eta olan gerrian sortzen asi yat min ori pakean itziko nau urrean...

Andere kementsuari urteak era ontan yoiakiozan, itxaropen eta arrenkuren artean, noiz argitan noiz etsipenezko itzaletan. Andere'k aintziña izandako esku malgu ta liraiñak, itsusi, latz, eta eragabeak biurtu yakozan, eta lits gorritza iguingarria erakusen. Emakume onengan baiñan, adore arrigarri bat egoan bizitzaren garraztasunari aurre egiteko. Gogo erraldoicko emakume gaillen eta ezezagun onek, bizitzean jaurri izan yakon arazo gogorra, neketsua, txintik atara barik, zinkurinka ibiltzeke, artu egin eban, eta bizitzean zear ixiltsu ta pakez beterik yoian megarkerietan yardun gabe. Andere emakume aundia zan benetan.

(Jarraitzeko) AGIÑALDE'KO TXEPETXA

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

KIROLAK

ESTROPADAK BUKATU ZIRAN

Urteroko Donoti'ko estropadak bukatu ziran. Bien bitarteko saltzak esan ta irakurgarri izaten dira. Naiz ta askok esan urte auetakoak ez dirala antziñakoak bezelakoak, nere ustez alde gutxi daukate. Bai, antziñan marka obeagoak egiten zirala. Ori, egi-egia dala ere bai dakigu. Jakiña, Donosti'ko kontxan markarik aundiena egin zun txalupa, San Juandarra izan zan. Marka ori ez da geiago ikusiko. Beintzat geroagoko arraunketetan ez da itxurarik.

Aurtengo estropadak... amar urte auetako txepelenak izan dira. Lenengo jokaldian egualdi eder, eguzkitsu ta aize gabeak izan ziran. Itxasoa zearo geldi-geldi, ibaia zirudin.

Lenengo igandean, nere aurreko idazlanean esaten nuan bezela, ORIO'tarrak lenen eldu ziran. Bigarren LASARTE, irugarren Pasai San Pedro ta laugarren Donostiarrak. Beste lau treiñeruak Ondarrabi, Lagunak, Ernani ta Zuberoa ondoren.

Guzien gora-berak emen idazten asi gabe, luzeegi izango dalako, laburki esango det. Aurten Ondarrabitarrak oso jokaera txepela egin dute. Nun dira oien orain bi urteko jokaerak? Idoloak, idolo izan arren denporaldi batean, azken uneak ere eltzen dira. Ondarrabitarrai ori gertatu zaie. Arraunlari zaarrak zartu ta gazte berriak oraindik asko ikasteko egon.

Oriotarrak lenengo igandeko jokaaldian atera zuen marka auek dira: Orio, 21/43; Lasarte, 22/03; San Pedro, 24/58; Donosti, 22/32.

Ikusten degun bezela, oso marka txarrak, txepelak. Zer gertatu zan? Oriotarrak, ain yayoak diranez, ikusirik bere areriyorik aundienak Lasartearrak zirala, ta aueri bildur askorik ez... atzetik aixa utziaz, gaiñontzeko arraunketak etzion bildur aundirik ematen. Lenengo txalupak, baldin ezpadu bere alboan beste treiñerurik, esan bearrik ez dago emen, bukaera ez dala marka onekoa izango. Oriotarren lasaitasuna aundia zanez, orrela lenengo ekiñaldia ta beren markak txepelak izan ziran, konparatuaz beste urtetako markakin.

Urteroko estropadak ordea, beste edertasun bat bai du emen. Bere apaintasuna, bazter guziak jendez betiak ikusirik, jendearen jendez betiaz Donosti'ko mendi, itxaso ta kaleak. Geroko kantuak, ederki bazkaltzeak, ta erri edo kai bakoitzeko ikurrin koloreak.

Goazen orain bigarren igandeko jokaldira. Ez da okerragorik iñungo jokaldietara jakiñean gaiñian joatea. Esan nai det, Oriotarrak lenen etorriko zirala ziur geundelako. Ordea, apuztuak zauden ugari. Apuztu oiek izanik Orio'k Lasarte'ri 20/30 segundo kendu baietz... ta, orra, 17 segundo kendu zizkion galduaziaz oriotarren alde egin zuteneri diru guziak. Jakiña, oriotarrai ajola gutxi. Auek lenen eldu ziranez, bi saialdietan, ta irabazi lenengo saria, orkonpon esango balukie bezela apuztulariari...

Ona emen bigarren arraunketan egin zuten marka: Orio, 24/05; Lasarte, 24/21; Donosti, 24/53; San Pedro, 24/58.

Zergatik izan ziran orren marka txarrak...? Egualdi kaxkarra zagonez, orretxen aitzekia eman bearko. Ala ere, nik ikusi ditut egualdi txarragoak igandekoa baiñon, orren lotsagarrizko markak ikusteko. Goizaldean euri ta aizea zegon, amabietako euriak bukatuaz, gero aizea besterik ez zegon. Jakiña, orren aitzekia eman bearko diogu... baiñon, ez gaude lasai, berrogeitaka urte auetako markarik txarrenak izan diralako aurtengoak. Kontxako baliz asieran asi ta bi puntak arte itxasoa ez dago, gero kanpoan bezela, ain aserre. Bi puntetatik kanpoko baliza arte treñeruaren yayotasuna dago... gero kanpoko balizara eldu bezin laixter, bira eman, eta onuntzean dago patroiaren yayotasuna.



Zer ikusi gendun? Treiñeru batzutako patroiak ezin zutela ongi zaitu olatuaren aserrea, askotan onuntz etorri bearrean Pasai edo Orio bidea artuaz. Orrek eman zioten kalterik aundiena. Ortako, saiaketak aurretik egin bear dira ta ez beti egualdi onak diran bitartetan.

Bigarren jokaldi orretan, kanpotin onuntzko etorreran ikusi degun jokaldia, ez det esango parregarria izan zanik, bai mingarriak arraunlari gizajo oien estuasunak. Etzan arraunari gogor tiratzea bakarrik, baizik PATROIAK treiñerua ongi zaitutzea. Olatuari txanpa ematen zaion bitartean, patroiak zuzen eramaten ongi jakin bear du ta ez ikusi gendun bezela. Erruak, zeintzuk ditu? Egualdiari eman bearko, eta, zergatik ez Patroieri? Arraunlari askok, ez du bear dan bezela arrauna sartzen uretan. Ortan ordea, oriotarrak yayoak izan, bai ibaian yoletan eta berdin itxas zabalean.

Orain bukatu baiñon len, ta emen lekurik ezdagonez bear dan bezela gora-bera guziak esateko, ona bi saiaketaren markak.


Orio, 45/48. Bi kopa, bandera ta 194.500 pta.
Lasarte, 46/25. Bi kopa ta 139.300 pta.
S. Pedro, 47/21. Kopa bat eta 104.500 pta.
Donosti, 47/25. Kopa bat eta 84.500 pta.
Arraun Lagunak. Kopa bat eta 65.500 pta.
Ondarrabi, 49/0. Kopa bat eta 20.000 pta.
Ernani, 50/43. Kopa bat eta 15.000 pta.
Zuberoa, 53/11. Kopa bat eta 12.500 pta.

Orra esan guzia. Ikusten degunez markak parregarriak dira. Markak balira bakarrik, gaitzerdi. Dirutzak dira txiruak. Lenengoak zerbait irabazi badute, azkenengoak ez du irabazi, ezta bazkari batentzako. Oiek, zer gogo izango dute datorren urtean etortzeko...? Edo-ta, askok, esaten dute, arraunlariak, kiroltasunagatik etortzen dirala, ta, ez diruagatik... Egia ote ori? Ez det uste nik. Kiroltasuna ona da, bere diru saria ez da txarrago.

Bizibideak gora dijoazten bezela, sariak ere goitu egin bear dira.

Idaz-lan au agertzerako, ill osoa joango da. Bien bitartean ORIO ta LASARTE Santoñako estropadetara joan ta zenitzuk izango diran garaille jakin gaiñian izango gera. Nik ala ere, uste det ASTILLERO izango dala garaille... ala, ORIO? Ikusirik emengoa, besterik ez det iksuten, Astillero ta Oriotarren burruka ikaragarria izango da. Oriotarrak, emen baiñon lan geiago egin bearrean izango dira, Astillerokin neurtzeko. Ikusi ta gero... guziok dakigun azkena izango da.

E. OZKIN



GURE
EGUN
ONEITAKO

EMAKUMEARI
BILBAO
BANKUAK

BERE
AUKERA
ONENAK

ESKEITZEN
DAUTSOZ

BANCO DE BILBAO BB

onek emakumeen eskubideak onartzen ditu

Aprobado por el Banco de España.

IDAZTI BARRIAK

Izena: Baserriko irabazbideak (Zabalegi nekazari-eskola).

Egilleak (alkarrekin): Andoni LEKUONA, Jaime ZUBIA, Jose PERURENA, Migel GARMENDIA.

Irarlea: Industrias Gráficas Valverde.

Urtea: Donosti'an, 1969.

Laguntzaillea: Donosti'ko Aurrezki kutxa Munizipala (90 urteurrenean).

* * *

Gure baserriak aspaldian arazo dira: gazteak euretan urten gura dagoz, lantegiak ateetaragiño sartzen dira, len irabazte gitxi emoten ba'eben orain aurrerarik onetan ez dabe egin, lana gogorra ta ordu askotakoa da, jakintza baserrietara ez da eltzen, urietan gaurko gizarteak emoten ditun erreztasunik ez dago... Eta eragozpen guzti oneik bat egiñik, baserriaren ondamendia dakarrela esan geinke.

Zabalegi'ko taldeak, baserria maite daualako eta zuzentasunak onelan eskatzen daualako, arazo au aurrez-aurre artu dabe eta urtenbide batzuk dakartsoz. Eta lenen nekazari-eskola bat irazan dabe, baserritarren aurrerapena lortzeko guratiz.

Bizkaia'n onelako eskola bat irasteko alegiñak egin dira, baiña zori txarrez, asi diran lanak ez dabe iraun. Erri baten baiño geiagotan amets eder oneik egin dira, baiña Gipuzko'arrak izan daben lako ondorenik ez dogu izan.

* * *

Zabalegi'ko ikastola onen barria damosku idazti onek. Orregaitik, liburuaren izena, ain egokia danik ez dot uste; baserriko irabazbideak ez dira liburuaren zati bat baiño.

Lenen agur bat dakar. Kutxaren lendakari dan Felipe de Ugarte'k idatzia. Baserriko bizitza Euskalerriaren nortasun emoille bat dala diño, eta gaur sendiaren oiñarri au indartzeko bide barriak agertu bear dirarala irakasten dau.

Gero Nikolas Lasarte, Kutxaren zuzendariak, itzaurre bat dakar: «Berri-emate bezela» artu bear da liburua.

Liburuak berak iru zati ditu: I, Zabalegi gizarte obra; II, Gipuzkoa'ko nekazari ta ganaduzaleak; III, Ekonomi-alderdiak.

* * *

An or emen aurkitzen diran gai batzuk oneixek dira: 1958'an sortu zan ikastola au: lenengo alkarte bat, gero baserri bat billatu, lege-bizitzea emon, gizarte-obra egin, teknikoak billatu... Artu ziran joerak ba dabe eredu bat. Prantzi'ko «maisons familiales». Ikasleak eskolan bizi dira, aste bitako egotaldiak egiten dabez, neskak eta mutillak artzen dira, sarreran lenengo maillako jakituria besterik ez da eskatzen eta andik urtekeran berarizko titulurik ez da ateraten, orain arte igaro diran gazteak 82 mutil eta 61 neska izan dira (au 1969'an, ez aiztu) eta azkenengo urteak ikasle aldetik ugarienak izan dira.

* * *

Neskak eta mutillak gai bardin-bardiñak ez dabez ikasten, baiña oneixek dira gaiak: erlijioa, ekonomia, aur-azikuntza, sukaldaritza, soziolojia, euskera, jakintza, joste, ganadutza, lugintza, frutagintza, landara-gaizoak, taller-gaiak.

Ba dira, baita, ikasteetatik kanpora egiten diran gizarte-lan batzuk: ikasle izanen baz-kunea (ortik profesio-eskola, kooperatibak, baserri-erakundeak), Santo Tomas Peria, udarako atzeden-aldiak, ikusleen ardurea, liburu barriak (Egiraun'enak eta okiñena'renak).

* * *



Gero liburu onek Gipuzkoa'ko beste nekazari arazo batzuk aztertzen ditu eta azkenez ekonomi-arazoa. Oso sakon eta ederto aztertua dator baserriko diru-arazoa eta arazo au zuzentzeko era egoki batzuk dakarz.

Amaitzeko, Eranskiñak: Lur-lantegi-klase gaillenak lurrez, errien nekazari banaketa...

* * *

Zer esan liburu oneri buruz?

Agertzen dauskun lana interesgarria da benetan. Eta uste dot gaur orduan baiño aurrerago izango dala. Ba leiteke ara ostera bat egin ondoren beste azter-aldi bat AGUR'ean agertzea.

Liburuaren mamin dana da jakingarria bai baserritarrentzat, baita baserrietako gizon arduratuentzat.

Euskerea Gipuzkoa'koa da, baiña oso argia ta garbia. Orrez gaiñera, gure izkuntzea ez dakienentzat, liburu berak erderaz be dana dakar.

Liburu ederra ta ondo irarria da, margoz eta argazkiz ederto apaindua, lurirudiz (mapaz) eta agergaiz aberatsa.

Urte bi igaro dira egin zanetik, eta ez dakit arrezkero barri-emote barririk egin dan. Baiña jakingarriak eguneratutea ondo izango leiteke.

OLAZAR Martiñ'ek

«LENENGO ANTZERKI-SAIL EMANALDIA» DALA TA

Jai onen azalpenean eta zabalkundean itxaro zana gertatu da: «Baiñan arrigarri dan zerbait gertatzen da gure probintzian. Alde batetik, jende geienen otztasun ta zabarkeria iñundik ere, eta, bestetik, zaletasunez betetako ainbeste antzerki-talde osatzen dirala, irrika bizi batez eta itxaropen zabal batez Gipuzkoa'ko bazter guztietara eraman nairik antzerkien esan-naia eta jakintza».

Beraz, ustegabea baiño itxaroten zana gertatu. Jendea otz xamar ibilli da, itxaro bezela. Ez da arritzeko ere Emanaldi au udara bizi-bizian izana da-ta. Baiñan CIT'ekoak pozik daude. Ikusi bait-da ondoren emankor batean biarko itxaropen bete bat.

Antzerki-taldeak, erderazkoak eta euskerazkoak, abegi ona eman zioten CIT'eko deiari. Asmoak bete ziran. Bost erderazko eta bost euskerazkoak eskatu eta azaldu, euskerazko batek azken orduan ematerik izan ez ba'du ere soldadu zeukaten mutil bati baimenik eman ez ziotelako.

Eta uste zan bezela diru aldetik emankorra izan ez ba'da, bai beste aldetik. Talde bat baiño geiago il zorian bai-zeuden iñorako deiarik ez zutelako. Emanaldi auek bizi berri bat eman die, xuxpertu dira eta saiaturik ekintza bide batean jarri dira. Or dabiltz jo ta ke.

Emanaldi onen izenak, eta talde ugaritasuna ikusirik, eraginkorra izan da taldeak beren saiaketetan arduratzeko. Iñork ez zuan nai iñor baiño gutxiago izan. Nabaitu degunez taldeetako zuzendari eta agintariek, geienetan beintzat bi eratara eman diran antzerkietara azaldu dira. Beti bai-dago iñorengandik zerbait ikasterik. Eta obrak eta taldeen jardunak ikusirik bitatik ikasten da zerbait. Azken ondoren on bat garbi ikusi bai-degu, alegia, orrenbeste talde ziralarik gutxietan ikusi izan degula antzerki-taldeak orren ongi gertatuak lanean jarduten.

Datorren urtean Emanaldi auekin jarraitzeko asmoetan dabiltz eratzailleak. Bear-bada garai egokiagoa aukeratu bear litzake, ez baita udara betea onena antzerkietarako.

Gure aldetik eskerrak eman bearrean gera CIT'ekoei. Gu izan giñan asmatu genuena, bai ikusi ere diruaren aldetik zetorren galera. CIT'era joan giñan laguntza eske. Eta laguntza baiño geiago eman zigun, berak bere gain artu zuan. Emanaldi auek eratzea, diruarekiko zamak artzea eta zabalkunde-bideak astintzea.

Gu, euskaltzaleok, eskerrak eman bearrean gera baita ere, ain ongi erantzun duten antzez-taldei eta beroak ikaratu ez zituan ikusle zintzoei.

Datorren urterarte, beraz, antzerkiaren maitaleak.

UXOLA

OBANOS'ko IXTORIO-MIXTERIOA...

Sei urte aundi lenengoz ikusgarri eder au agertzen asi zirana. Aurtengoaz 50 aldiz emana da toki guzietatik etorritako jendeen aurrean. Gillen eta Pelizie doatsuen eriotz latzaren gertakizuna erromes-bidean eta «mixterio» onen gora-beerak idatzirik daude, siñetsi ala ez. Urratz iraunkorra utzia dute Obanos'ko ingurumai ontan eta ni neuk ipui ta kondairaren berri eman baiño geiago lekuaren xeetasunak emango dizkitzuet.

Ilzarbe deritzan ballaran gaude, Naparroa'ko biotzean. Naparroa esatea XII-XIII'garren gizalditako aldi artan, Euskal-Erria'ren muña aitatzea zan.

Guzia zan orduan euskaldun, eta oraindik Obanos inguruko bazterrak euskotar dira. Lurra euskeraz mintza zaigu naiz bertan bizi diran gizaseme-alabak ez aditu... Ilzarbe, Obanos, Gares, Ibarbero, Karatea, Nekea, Pikupea, Errotaldea, Eneriz, Muruzabal eta Eunate... ta batik bat Arnotegi, *zer dira euskal izen garbiak ez ezik?*

Arnotegi, Amabirgiña dagon elizatxoaren toki izena da. Maats-lekua izanik, inguruko lurraldea, beintzat, askok uste izan dute izen ori «ardo» itzetik etorri ote zitekean. Baiñan etimolojia kontuan zuur ibilli bearra dago. Maatsaren zumoari ARNO esaten zaio, bai, Benabarra ta Laburdi aldean. Goi-aldeko Naparroan eta Iruña'ko barrutian mintzatu zan izkelkian beti ARDO *Gipuzkoa eta Bizkaian' bezela. Aski da Azkue'ren iztegia, Mitxelena'ren Fonetika eta Lizarraga Elkano'ko apaiz izan zanaren Platikak edo Itzaldiak (1802 urtekoak) irakurtzea.*

ARNO itza bestenaz ugaria da ta nundik datorren asmatzea ez da ain gaitza. ARAN landaretik jatorria ote duan nago. Beraz ARNOTEGI, ARANOTEGI'ren laburpena dala derizkiot, beste leku batean idatzi dudan arabera. Ain zuzen toki artan BASAKARAN: PRUNUS SPINOSSA asko bildu ditezke, naparrok «Patxaran» patarra goratzeko erabiltzen dituztenak.

* * *

Utzi zagun ordea lurra ta begira zagun zeruruntz OBANOS'ko Mixteriora, Gillen eta Peliziea anai-arrebarengana. Ark arreba erail ondoren Konpostela'n damutasunez biok santutasunera eraman zituan denborara. Gure Etxahun ez zan orrenbestera iritxi naiz Santio (S. Jaka) bidean erromez ibillia izan eta zuriki Obanos'tik barrena...

GILLEN eta Pelizia'ren Mixterio-ikusgarria ez bestelakoa da. Sortzaille eta eragille dan Santos Begiristain apaiz jaun argidotarrak goresmen aundi bat merezi du. Teatro-errikoi jaialdia eraikitzen artu dituan lanak ospea emango diote gerora. Laguntzaille izan dituan Claudio de la Torre teatro-gizon famatua, Manuel Iribarren olerkaria, Morondo musikaria, Arraras dantzarimaisua ta gañerako guzientzat txalo bero bat. Eta ez epelena OBANOS'ko erriarentzat. Erri osoak, aundi txiki, gizon eta emakumezko joku-lagun bait dira. Guziok infantzaon! Zorionak anitz urtez! Teatro errikoi eta orokor bear duala izan esan dutenak ba dute non ase beren gogoa. OBANOS'en ospatzen dan MIXTERIOA Europa'n egiten dan Teatro-jaialdirik ederrenetakoa dala arrokeriarik gabe esan genezake. Damurik, akats batzuek ba ditu ta ez iñor mindutzeko asmoz ikusgarria obetzeko gogoz baizik esatera nijoana. Gertakizuna Euskal-Errian jazotzen dalarik eta ainbeste antzezlari, erromes, nekazari ta erri xearen artean ez dala euskerarik entzuten. Jantzi, apainketa, tresna zaar ta gañerako xeetasunei antziñako kutsua eman diote. Musika ta dantzaldiak ba dute euskal tajua baiñan bazterrean utzi dute MIXTERIO'aren barruan euskerari sarrera ematea. Au utsegite aundia da teatrotasunaren aldetik: euskerak berez indar berri bat erantsiko zion antzezkizun guziari. Obanos'eko ikusgarria urtetik urtera obetutzen ari diran ezkero onoko idazlari onek arren zuzendari jaunei eskatzen diote, ausarkeri geiegi ez baldin ba'da, urrengorako, euskal dantzaz gañera, zenbait euskerazko esaera, bertso, kanta ta otoitzak sar ditzatela. Gillen eta Pelizia doatsuen Mixterioa osotu ta edertuko luke egiantza ta errikotasun biziagoa erneturik.

Orduan Obanos'ko Teatro-jaialdia gaur Europa'n kristautasun giroan egiten dan ikusgarririk eder ta garaienetakoa izango litzake.

Aldez aurretik eskerrikasko nere asmoa ontzat artzen baldin ba'dute ta garaipenik aundiena lortzea opa diet anitz urtez!

ANTONIO M.ª LABAYEN

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

AZKUE'REN IZTEGI AUNDIA

Barriz argitaldua ale bitan. Lengoak eta 5.000 itz geiago daroaz, Azkue jaunak arrezkero batuak.

HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE BIZCAYA

E. J. de Labayru'k idatzia. Zortzi ataletan barriz argitaldua. Lengoak eta egilleak galdutzat eukazanak bere ba'dakarz.

ANNALES DEL REYNO DE NAVARRA

Zortzi aletan au. Moret eta Aleson'ek idatzitakoa.

CANCIONERO POPULAR VASCO

Ale bitan. Azkue jaunaren bilduma ikusgarria; gizon orren lanari eskerrak, iñoiz galduko ez diran ainbat abesti ta doiñu.

REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS

Ogetabost ale. 1906'tik 1936'gn, urterarte Euskal-jakintzan gorenengo izan ziranen lan garrantzitsuak.

DICCIONARIO HISTORICO GEOGRAFICO DE PAIS VASCO

Ale bitan, 1802'gn. urtean REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA'K argitaldua. Gaur erdi galduta dagozan izenakaz aberastuta.

NOTICIA DE LAS COSAS MEMORABLES DE GUIPUZCOA

Iru aletan barriz argitaldua au bere; Gorosabel eta Etxegaray'k egiña.

TA BESTE IDAZ-LAN GARRANTZITSUAK

Eskatu «La Gran Enciclopedia Vasca» ra.

Apartado núm. 1.510. BILBAO

Galdakano

Erriko «Andra-Mari» eusko dantza-taldea agertu asitea, lelokeri bat izango litzake, Euskalerri guztian eta bertatik-at alderdi askotan dantzatuak izanik eta toki orretan lortu dabezan goralpenak gaitik, oso ezagunak diralako aspaldiko urteotan; beraz, ez gatoz talde ori agertuten, egin dabena eta egin naidabena azalduten baiño.

Orain amabost urte sortu zan «Andra-Mari» taldea, euzko dantza ta erri-jakintza erabilliteko inguru guztietatik, erriko eleiznagusi barrenan, da bertan jarraitu dabe entzuterarte, baiña, orain «anditxuak» egin dira ta ugaritu. Toki zabalagoak bear ebazan asmatuta daukezan gai guztiak aurrera eroango ba'ebezan eta, orretarako lege barruan. Erti ta Jakintza Bazkuna lez sartu ziran, legepean obeto zabaldu ta irakatsiko dabelakoan euzko dantza, eresi, txistu, abesti ta ganetiko erri-jakintzako arlo guztiak. Arlo zabal orretan zerbait egindo ba'zan, leenengo areto on bat edo geyago bear eben, erosi, ta erosi dabe, baiña orretarako eurak dantzaldiekaz irabazi dabezan baiño txinditza andiagoak bear izan dabe eta, orregaitik zuzendu dira erriko ta inguruetako adizkideengana laguntza eske bazkun ortara bazkidetuaz edo eskupeko baten bitartez lagunduaz.

Aldi ontan, ogei ta amarren bat neska ta mutil dantzari andi dabez, eta eundik gora txikitxuak; lau txistulari dakitenak eta amabi edo geiago ikasle. Bai-ta gertu nai dabe eresikastola bat eta beraz batera, bearbada, Abesgora talde bat eleizarako ta abar, eginkizun guztiok goralgarrienak. Eta orretara izanik, ziur gagoz ondo erantzungo dabela «Andra-Mari»'n deiari benetako euzkotartzat dauden galdakanotar guztiak.



JAIOTZAK

Igaro zan Dagonilla'n seme eder bat, lenengokoa, izan eben Altuna'tar Jon-Ander eta Izunza'tar Miren-Gotzone senar-emazte euskeltzale gazteak, ta zelan ez AGUR'en irakurleak. Eta euskeltzale onak legez Aitzol euskel izen gomutagarria ipiñi leutsoen ugatzakeran.

Bai-ta illa orren azkenan, guri be illobatxu bat ekerri dauskue ezkonseme Otxoa'tar Nikola ta alaba Begoñe'k, euren bigarren alabatxu kutun bat. Ugatzaukeran, zetan esan bez! Ziartza euskel izen atsegingarria jarri dautse, baiña euskeldun garbi izateko gero...

UDALAITZ'ERI

Agur Arrasate'ko «Udalaitz» idazle azkarra, eta, eskerrik asko nere idazlantxu a dala-ta AGUR'en idatzi dozunagaitik. Goralpenak, gitxi edo asko, guztiz poztutzen gaitu, baiña, askoz geiago poztu nau euskera garbi ta txukun zalea, h zatar eta mordoillo bageko euskera ulerkor zalea zareala ikusteak. Ba-dira oraindik gure izkuntza maitegarria beren jantziz apainduta ikusi nai daben eusko seme zintzoak. Jarrai bide ortatik «Udalaitz» eta agindu.

Bai-ta irakurri dot «Gorbeatarra» zintzo orrek diraustana. Poztuten naz orretara izateaz; artu nire agur maitekor bat.

JAI GORALGARRI BI

Jai bi ditu Galdakano'k, azkenengo urteotan erriko jai nagusiak baizen aomen andiagoa emon dautsenak, goralpenik andijenaz ospatuak izan diralako, ezagunak egiñik Euskalerri guztian Jai orretariko bat euskal jaia izango dogu, edo obeto esateko euzko astea, bear diran baimenak lortuten ba'dabez antotzailleak, beste urteatako gazteak, Iralla onen 27'gn. asiko dira euzko jakintza, itzaldi ta abar, euskal jai bikain batekin eta burditzan erakuste-ibilketa ikusgarriaz amaia emoteko.

Benetan pozik emongo genduan azalpen geiago jai onetzaz, baiña, eralduten dabiltzazenak eurak be eztakie zer ospatu al-izango daben, lerro oneik idatzi doguzan arte beintzat. Orixe bai, euskal jaia Urrilla'n 3'gnean amaituko dala Burditza'ren ibilketaz. Eta Euskal jai orreik gertuten aurrenengo laguntzaille izanago dira «Peña Santa Cruz»'ekoak, txalogarria benetan bazkun ortakoen ekintza.

Beste jaia, ziza edo perretxiko leiaketa-erakusketa dogu, zetan esan bez, beti legez «Peña Santa Cruz» bazkunak antolatuta, nai-ta aurten ez da Galdakano'n ospatuko, Bilbo'ko «Feria de Muestras» esaten dautsen Erakusketa Azoka'ko areto zabaletan baiño, Bizkai'ko Aurrezki Kutxa'ren babezpian, Alkargo orreik eralduta ospatuko daben Bizkai'ko Baserri gauzen Azoka dala ta, Urrilla'n 12'gn. asita iru edo lau egunetan.

Beraz, aurten eztogu errian jai ikusgarri ta ikasgarri ori eukiko, baiña, jai orren laguntzaille izan dan Aurrezki Kutxak eskatu dautso «Peña Santa Cruz»'eri urte ontarako ta pozik egingo dabela dirauskue. Orretarako, Bizkai'ko ziza zale bazkun eta perretxiko zale guztiei deitu dautse, guztiak edo aal dabenak euren ziza sortak aurkeztu daiezan erakusketa ortara ta, ez dau iñork ezetzik esan.

Aurten ezta izango leiaketa, erakusketa baiño, baiña, erakusketa ortara euren sortak aurkeztuten dabezan guztiak eukiko ei dabe sari-gomutaki egoki bat, eta gaiñera beste leiaketa baten lez sari onak merezi daben motako sortarik aurkeztuten daben guztiak be. Alan ba asi gertuten ziza billatzaille bizkorrak zaren guztiok, laster dozue zeuon trebetasuna erakusteko erea-ta.

BASA - JAUN

Zeanuri

Gure Zaindari nagusia dogun Andra María'ren jaiak. Zeanuri guretzat erri pozgarria, Andra-Mari dogulako gure Zaindari.

Aurtengo jaiak dirala-ta, zerbait esan gurea. Bear ba'da zertzelada guztiak ezin esango doguz, baiña al-dana egingo dogu. Eleiza nagusia ondo apainduta loraz, orretan da ba Antonia Eleiz ondokoa... bejoyakoz gure zorionak AGUR aldizkari onen bidez, bere arpidedun be bai-da-ta.

Amarderdietan Meza nagusia. Ondoren aurrezkua Eleiz ondoko zelaian. Ainbat euskal jai izan doguz aurten: Galdakano'ko «Andra-Mari» jantzariak; Sardui bertsolaria; abesti-leiaketea; «Egan» soiñulariak eta erriko txistulariak eta abar.

Baiña erri bat dogu Zeanuri. Jarraitu dagigun euskal oiturari. Gureak doguz bai ugari. Erbestekoeri ez emon garrantzi geiegi. Igarri barik ez dagigun galdu. Geure Euskal-Erri. Gazteak eta zarrak, ekin daigun gogor lanari. Ba-daukagu zer egiña ugari. Jakintzaz eta maitasunez, egin dagigun ZEANURI gure erri.

ERIOTZEA

Eleiz ondoko auzunean, gexotasun mingarri bat eroapen aundiagaz igaro ondoren, gure Aita'ren etxera joan jaku 87 urtegaz, Andresa Etxezarraga. Amaika seme-alaben ama. Eleizkoia, zintzoa ta langillea. Ez goaz agurrik egiten, laster arte esan baiño.

URKIOLARA

Emen, «Zar eta Gazte» izenagaz dogun alkartekoak, gure opor aldiko egun bat igaroten, Urkiola'ra oiñez izan giñan 9 urteko Josebatxo ta 77 urtedun diran Basili ta Jenerosa geugaz zirala. Ordu askoko bideak egin genduzan ta ainbat lagun bertaratu giñan, urtero egiten dogun ibillaldi onetara. Meza Deuna Los Rios'etan mixiolari izandakoak, ondo etorria! Itzaldia, Zeanuri'k euskal mixiolariekaz zer ikusi aundia daukala, emengoa gendun ba asiera ta indarra emon eutson D. Maximo, baita ogetaka urteak, ortik lanean gogoz egin dituan D. Eusebio be «Los Rios» aldizkariaren zabaltzailleak garean aldetik, ondo adierazo eban gure lanaren eginbearra, ta ain ondo erantzun dabelako zeanuritar guztiak eskertu zituan. Eleizkizuna amaitzeko Agur-Jaunak abestu gendun.

An be izan gendun Sardui bertsolaria, ta bere ama ezagutzeko erea. Asko poztu giñan ta barriketa aldi bat be egin genduan. Sardui'k bertso mamintsuak bota euskuzan, ta gure txaloak beretzat izan ziran. Arrese-Beitia, gure amaren osabea zana be gogoan izan gendun, eta bere bertso ezagun a be abestu: Euskaldun jaio nintzan; Euskaldun naiz azi...

Amaitzeko, eskerrik asko Sardui ta bere amatxo onari, eta ain ondo eruen etxean artu ginduezan urkiolatarrei.

GORBEATARRA

Euba

EIZTARIEKIN

Gure Erri eta euskerarenganako aintz eta begirapenik andienean eratu ta egiten diran jaietan, ordu erdi bateko epearen buruan Etxebarri'ko labepetik urten gabe, España'n diran zazpi erki, probintzi zabalenetako eperrak eratsi genduzan.

Olano'tar Jon izan zan, besoak jaso ta bat bestean atse jarririk amabost eratsi zituana. Suertiak lagundu ba'leutsa... geiagotxo izango ziran.

Aldamenean doguzan Teo ta Mauma artegatuek dira orain, besoak jaso ta zeruruntz luzeturik mundu onen azkenegun larriaren antz eta irudizko triskantza egiten asi diranak: pin, pan, pun; dinbi ta danba. Goietatik beeraka datoz eperrak, galeperrak, ega-zati, buru ta anka; eta noraezean aizetan dabillen lumategiak eguzkia bera bere estaldu egin dausku.

Ber-argitu da eguna. Bat, bi, esanez, asi gara, bada, makur-zutitua egiten eta txoriak metatuten. Lareundakak dira pillotuak.

Mauma'k indieper eder bat il dauala bere ba-diñozku, txapelokerren bilduRrez baiña... sasipean ezkutautu daualata esku-utsik datorkigu.

Ixil-mixil elorriotar pospoliñen baten lorratzatatik dabillen Ernesto, alako oriontzi bidoi andi bateri daunbadaka ari da begia zorroztu ta sen onenean izateko. Zorroztuz doakio begia, eta orain goruntz jaurtitako txoletak iriztontzi biurturik datoz lurrera.

Lan ontan ari dala baiña, eperra ikusi dau egazka-tarrazka; jaurti dau izkillua lurrera, eta tximista baiño azkarrago eskua ezarri dautsa.

Arratsaldeko irurak dira. Gosearen gosez eta egarriaren egarriz ezpanetan bits-aparra dogula irakurleen osasunerako izango dan bazkaria egitera goaz.

ARTAUN DIK

Tomas Basarri'ren bakar-bizite latza leundu ta baretuteko dei dagitsuet, Mugarra'ko sorgin-landara, Zuazotarrai, onein iztarsenide ta artaundarra; batezbere neskazar, bizialargun eta ume askoren ama alargunai.

Guztiok jo daigun, bada, Mugarra'ra, Basarri adizkedearentzat zartzarorako laguna aukeratu ta eztegua gertatzera. (Batzarra urrillaren bigarren igandean).

LANDAJUELA'TAR A.

Arrasate

IKASTOLA

Idazlan au agertzen danerako ikastetxeetan asirik izango dira 1971-1972 ikastaroak. Baña gure ardura geiena Ikastolatan jarria dugu. Orregaitik itxaroten dugu euzkotar bezela dagokienez bertako irakaskintza kristau eta euzko-nortasunez betea izango dala.

ERIOTZAK

Jaunak beraganatu du gure lagun on izan zan Baltzategi'tar Gotzon, «Erregetxo». Bere bizi guztian mendigoizale purrukatua izan zan, eta ain maite zituan gure mendiak, Besaide Alkarteak eratutako sari guztiak irabazita gero, urtero bere ibillaldia egiten zuan Udalaitz gallurrera urtean lenengo egunean, naiz edurra eta naiz edozein eguraldi izan. Au egin zuan bere 67 urteak bete artean. Goian Bego. Samin agurra bere emazte eta seme-alaberi. Baita ere il zaigu Arabaolaza'tar Gotzone, eskarnetar (mercedaria) lekaimea. Urte askotan erbestean ibilli izan ba-da ere emengo Eskarnetarren Ikastetxean izan du bere eriotza. G. B. Laguntzen dautsegu euren samiñean gure lagun eta «AGUR» onen arpidedun diran Etxebarria'tar Jon eta Etxebarria'tar Begoña'ri, ildakoaren lobak.

Beste eriotz tamalgarri bat ere izan dugu: Bengoa'tar Joseba Mirena'rena. Berau osagille euskaldun zurra izan zan eta erriak asko maite zuan. Aretxabaleta'ko semea zan baña emen urte asko zeraman. Goian Bego. Ia osagille gitxi geratzen zaigu euskaldun diranak. Beste orrenbeste gertatzen da lanbide askatuetan (profesion liberal), eta olan ikusten ditugu notariua erdelduna dugula. Udaletxeko idazkaria beste orrenbeste eta lege-gizon (abogado) eta orrelakoetan be erdeldunak geienak. Ori bai gure ola-gizonak geienak euskaldunak ditugu. Itxuraz etorkizun obea ikusten dute fabrikantea izateakin baña euskaldun bezela galduaz goaz geutarrik ez-izatean.

EUSKERA ZERTARAKO?

Garai batean bai-zan oitura bat gaur egunian ontzat emango ez genukena. Au-da: Iñudetza. Baña jarri bear dugu aro artan eta orduan etzan ain oker aundia. Baña guazen arira. Bai zan garai artan sendi euskaldun eta erriak asko maite zuan sendi bat. Onetan emaztea juan zan iñude Valladolid'era eta senarra emen gelditu zan itun eta triste eta zitzaion eskutitz bat idaztea. Onetan senarrak etzekien erderaz baiña bai zerbait idazten. Emazteak etzekien irakurten. Olan ba senarrak idazten du eskutitza euskeraz. Emazteak eskutiza artu bezin laister etzekien zer egin eta otu iakon etxekoandreari erakustia, eta onek erdelduna izan arren irakurri zuan euskerazko ori eta gure iñude onak samur ulertu zuan senarrak esaten eutsona. Baña etxekoandrack zelan etzekien euskeraz etzun tutik ere ulertu eta senar-emaste arteko esan-naiak Mc Namara'ren paperak baño ixilgordeagoak geratu ziran. Nork esan du euskereak ez dula balio ezertarako?

ARANTZAZU'N

Illan 12'an egin zan urtero egiten dan ibildeuna erri onetatik eta naiz-eta lenagoko denporetan beste jende ez izan, ederto batu zan gure Ama Arantzazu'koren oñetan. Eguraldiak etzun lagundu baña an izan ziranak pozik etorri ziran urrengo urtean bere juateko asmo onakin. Izan be ango giro ederra, batezere meza eta itzaldi sakontsuak entzunda, gure biotza asetu egiten du maitasunez gure Arantzazu'ko Ama Neskutzak. Batez ere gu arrasatetarrok betik izan gara Arantzazu'tar maiteenak eta olan jarraituko dugu, naiz eta gaurko giro askok oztopoak ipiñi gure bidean.

UDALAITZ

Basauri

Amaitu dira oporrak eta ba-goaz barriz gure lanetara biurtuaz; batzuk arpegi alaiz, baiña geienak arpegi itunekaz. Ba-goaz orraitiño, astiro-astiro girora egiñez eta barriz gurartean sortuaz joango dira kezkak, ardurak, gatxak eta ametsak. Batzuren aldi ontako kezkak, obe danonak ba-litzakez, urren izango dan Eusko Ikastola da. Izatez, danon naia au da: Jaso erri-alde guzti ontako umeak bertaratu litzakezan Ikastola bat, non? Orretarako, baiña, erri edo alderdirik egokiena izentau bearko litzake, auzi ontan alde artu nai daben errialdeko tokirik osansungarri, alde batera bakoitzaren naiak eta norberakeriak itzita, danen edo geienen ongarrieri begiratuta.

Gure ustez, tokirik zindo ta beraz bikaiñena, Zaratamo ingurua izango litzake, beren alderdi bedartsu ta guzti eta ke ta loikeritatik urrunduta baiña, aintzakotzat eukirik inguruetako errietatik urbil dagola, albo-errietatik bertaratu daitezan, eragozpen andi barik, nai daben ume guztiak. Eztago beste biderik azken aldiko irakaskintzan lege barri barrenean artuak izango ba-gara.

Beste aldetik, aurkitu leiteke erriren bat bere Ikastola dabena —Galdakano esate baterako— edo euki aal leikena, baiña, ezta ori lortu nai doguna. Lenago esan dogunez, urrengorago begiratu bear dogu, danok batzeko Ikastola bat jasoaz, bestalde ezin izango genduke euskera aldeko bear dan zabalkunde andirik egin banaka edo taldeka ibilliaz, guk nai dogun lez beintzat. Gure ametsak, bear-bearreko gurariak egi izatera biurtzeko, ba-dakigu txinditzak bear dirala, baiña, orain egiten ez doguna ez da errezago izango emendik urte batzuetara, ainbat zaillago bear bada. Lau edo bost erri dira auzi au batera erabagiteko kezkatuta dagozanak, ba dakitelako euskerak euskotarrontzat daukan garrantzi izugarria. Eta orretara izanik, ordua da alderdikeriak eta erriketak alde batera itzi, ta benetako euskeltzaleak legez, jokabide zuzenak artuteko.

Orain, sendi-gurasoak itza dauke; eurekan dagolako gure izkuntz, euskera bardingabearen etorkizuna.

OSTIKOKETA

Zoriontsu asi dala esan leiteke gure Baskonia ostikoketa kidea, asi barri dan aurtengo txapelketan, naita leenengo jokaldia Bizkai'tik at jokatu, bardindu egin eban, eskualdi edo puntu bat bertatik ekarriaz! Batez bere txalogarria izan da, aintzakotzat euki ezketiño dauken kide txikia. Atletik'en laguntza geiagoren itxaropena euken, baiña, zori txarra! eztabe izan gitxi baiño.

Aurten, jokalari-zerrenda laburra dabe txapelketa luze ortarako eta, ainbat txarrago gaiñera, geienak gazte egiak dira ta molde-gabeak txapelketa ortan. Ia ez dabe ezer esaten Bilbo'ko egunkariak «Baskonia»'tzaz, zergaitik? Aurrera beti baskoniatarrak, kikildu barik!

KOLDO

Usansolo

ILLETAK

Illabete barruan, Ageda ta Filo il jakuz. Aren sendiari Agur'en ta gure atsekabea erakutsi geuntsan igaro dan illean, ta gaur azaltzea nai dogu Yurrebaso'tar seme-alaba ta euren emazte ta senar guztieri.

Iñor ezaguna izan ba'da gure auzunetan, Filo izan da. Naiz eta zortzi seme alaba jatorreri sortuerea emon ta arein ezitasuna ta nortasunaren ardura gogorrak izan, bere ezpanetan beti irribarrea egoan. Nolako ama, alako semeak. Kepa'gandik asi ta Lourdes'egaz amaituarte, zenbat euskalzale zintzo, sendi ospetsu onetan. Ta au erri guztian gogoan dagoan ezkero, zelako notiña zan bere eleizkizunetan.

Sarritan izango dira gure gogoan, an entzundako abesti ederrak, euskaldun ama baten oroimenez. Bere sendi guztiari, baiña, batez be gure Libe, Edurne ta Lourdes adizkide maiteeri, gure taldeko abeslari kutuneri, Agur'en ta gure atsekabe biotz biotzekoa azaltzea gura dogu.

EZKONBARRIAK

Sendi barri bat sortu da gure errian. Joxe Mari, Trokarro'ko Garai'tarren sendikoa ta Mari Cruz, Zamakoa'ko Egiarte'tarren alabea. Euskaldun gazte asko izan ba'dira aspaldi onetan bide barri au artu dabenak gure artean, ez doguz oneik berango maillean ezarriko euren euskalzaletasuna erakutsitako orduan. Zenbat aldiz ikusi dogun Joxe Mari, ezelango lotsa barik euskal mezetan, irakurgaiak irakurten.

Euskal sendi zintzo baten erpa barriak, euren nortasuna ezin ukatu. Ez aiztu Joxe Mari ta Mari Cruz, non ta zelako sendian jaioak zarien. Jarraitu ta ekin zintzo jokatzen gure erri kutunaren alde. Zorionak biori!

KILI-KILI'KO IBILLALDIA

Ibillaldi ederra izan dabe gure umeak Kili-Kili'ren lepoz. Zintzo ekin ba'dautsie be urte barruan, euskera ikasteko arloan, Kili-Kili'k antolutako ibillaldia eurentzat, ez da makala izan. Galdako'n asi ta Deba'ra amarretakoa egitera. Sabela bete bete egin da gero, Ondarrabi'ko ondartzan, jolasaldi bat izanda gero, bazkaria.

Begi aundikoak dirala gure gazteak esaten dabe, baiña arein agiñen ekinbearra ikusi ta gero, guzurra dala esakera ori ezango neuke Jesus ta Maria! A zan ikustekoa. Ogi zati aundi bat ikusi arren arein eskuetan, ez giñan bildur izan, ez. Agur bat egin orduko, dana amaituta egoan. Beste txatal bat asi ta bardin. Jaunak zaindu dagizala beti bardin.

Arratsaldean, Igeldo'ra. An gelditu ziran gure aurraren txakur txiki guztiak. Zenbat irribarre agertu zan euren zaintzaleen ezpanetan etxerako bidean, naiko jolas egin da gero, lo bete betean ikusiaz ume geienak.

Eskerrikasko Kili-Kili, ta urrengo urtean be ez aiztu gure umeetaz, eurak euren arloa beteko dabe-ta.

ATXUTEGI'TAR JULENE

URKIOLA ARNAS-LEKU

Urkiola'ra noan bakoitzean, pozez zorabiatuta biurtzen naz etxera. Izan ere, toki berezia ta ezbardiña gure Urkiola. Bertan zoragarrizko ikusmirak ditue gure begiak. Pago, areitz eta urki euskaldunak. Mugarra, Unzillaitz, Ailluitz eta Anboto, eguzkiaren ixpillu aundi ta gogorrak dirudie. Aitz tontor bitarteetatik Mañari, Durango, Andikona, Oiz-mendi ta Lekeitio-ingururaiñoko mendi zugaztitsuak agiri dira. Baita Gorbea, Saibigain eta Urkiola-mendi lirain eta eder ikusten dira. Mendietako ardi zuriak, baita arranoak ere, inguruetako aitz ta mendietan janari billa or dagoz.

Gure belarriak txoritxoen abesti ta zaldi ta ardien arran-soiñuak eztituten ditue; biriak, bizitzarako bearrezkoa dan aize garbiaren arnasa sakon ta zabalagaz, garbitasuna bertan dabe. Bertako jarlekuetan edo, eguzkia ba'da, pagopeetako bedar bigunetan, gerizpetan etzunda, a zelako atsedena soiñarentzat! Begi-belarriak eta biriak poztu ta indartu ondoren, barruak, siñedunok aita San Antonio'ren eleizara, eroaten gaitu. Soiña orrela gertaturik, bai lasaigarri ta ederra eleiza ortan otoi egitea! Mendiak zenbat eta gorago, zerutik urrago, diño idazlari batek, Goi-goi dago Urkiola ta bere eleiza ederra gain-gaiñean. Garbia, sutsua ta egizkoa benetan an egiten dan otoia. Jauna'gauntz bereala ta zuzen elduten dala zer esanik ez.

Txiki-txikitatik igoten nintzan aita San Antonio ikustera. Ta ango notintza ikaragarria, bide-zabal, bidetxigor, mendiarte ta zelaietatik! dana zan jendea etorri bearra! Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Naparroa ta Auiñamendiaz bestaldeko euskaldunak an ziran erromeri etenbakoan, guztiak etozela. Aita San Antonio Urkiola'koa, askoren biotzeko santu debotoa; askok egiten dio egun batean joan eta bestean etorri... guztiak abestuten. San Antonio biak ez dira euskaldunentzat Ejipto, Padua edo portugaldarrak, euskotarrak baiño. Urkiola'ko Andoni deunak, abatea ta paduatarra, Urkiola'n euskaldun biurtu dira. Eta orrela euskaldun askok bertokoak dirala uste dabe.

Urkiola euskaldun fededunen arnas-tokia ta kristautasun indarra da. Be-aldean ta auts-artean bizi garanok ez daigun galdu Urkiola'rako bidea. Euskaldun guztiok mendi ta eleiza orretara igoten jarrai dagigun. Siñismena krisis gogor batean dago; kezkaz bizi gara, ainbeste liburu ganorabako ta ainbeste igarle maltzurrek, euskaldun izateagaz batera geure oitura, iz kuntza ta siñismena kendu gura dauskuezelako. Ta orren aurka, ke-artetik, auts-artetik ta aburu gaiztoetatik garaille urten dagigun, gure soiña ta gogoa garbitu bear ditugu Urkiola'ko aize garbi, ikusmira ta eleizan. Orrela gizonago, baketsuago ta erri garbiago izango garealako.

Urkiola'ko eleizaren teillatuan jausten dan euria itsaso bitara doa. Araba'aldeko teillatuan jausten dan euria Zadorra ibaira doa ta Zadorra'tik Ebro'ra, ta azkenez erdiko itsaso edo Mediterraneo'ra. Bizkai'aldeko teillatuan jausten dana, ostera, Ibaizabal ibaira ta andik Kantauri itsasora ta Atlantiko'ra. Ta orrela ludiko itsaso ta laterri guztiak arakatuten dabez. Ur orrekaz batera joan bedi euskaldun siñedunen izate goi-goitikoa ta agurrik beroena munduko erri guztientzako.

Urkiola lako gauza ederrik iñun bai ete?

GALLASTEGI'TAR KAULDI

URBION, ASPALDIKO GURE AMETSA

Aspaldiz, urteak dira, Burgos, Soria ta Logroño bitartean iru eskualde orreik mugatuten dan mendidi zoragarri ori ikusteko asmu bizia gendun, amets bat lez zan guretzat mendi ori. Ori dala ziyo, orain amabi urte erabagi gogor bat artu genduan beste mendigoizale kementsu batek eta nik Errioxa'ko Ezkarai'tik urten da Demanda mendidia ta Urbion'ekoak, gure asaba zarrak, euskaldunak, bizi izandako menditarteak aztertutea, nai-ta ba'genkigun orretarako oiñezko ibilkéta luze ta nekatsuak egin bearko gendubazala. Baiña, esaera dan-lez, gizasemeak adirazoten dau ta Urtzi Deunak egin, da ezbear zatar batek errenduta itxi nindun da, ezin izan genduan bete gure guraria.



Aldi ontan, gauza batzuk obetu egin dira, alderdi artara elduteko erak bideak eta berebillen bitartez errez dagolako bertara igotea, alan daze, Urbion'era igotean bakarrik izan ezkeitiño, egun baten egin liteke joan-etorria. Guk, baiña, ordu batzuetan inguru artan bizi izaten nai genduan bertako ikusgarririk urtenen batzuk ikustarren da beraz, Iñaki Deunaren eguneko zazpiretan urten giñan erritik, senaremazte bi Orduña, Burgos eta Sala de los Infantes' etik Soria lurraldeko Covaleda erri garbi ta menditsura elduteko. Erri ortan, baiña, itaun batzuk egiteko baiño beste aldirik ez gintzazan egon; erria baiño irureun bat neurkin leenago dagon basobide berezi batetik gora, lerdoi azken bakoa ziar da okerka beti Iparaldera, igon giñan Urbion'go gaillurra baiño beragoko mendi-lepora, bertotik laster baten igoteko ainbeste urtean amets eragin dauskun 2.228 neurkin goiti daben mendi-mustur ikuspegi zoragarri ortara. Ez giñan bertan luzaro egon, batetik, bultzatuten leuskun aixe zorrotza gaitik eta bestetik odai antzeko laiño mordo bat ingurututen asi zalako, badezpadan, jatsi giñan, baiña, naikoa zan bere inguruetan diran zingira ta berago jayoten diran iturriak, itxaso bitara doyazan urak ikusi ta edateko be, euren izenak direauskun onak ba'ziran ala ez.

Jatsi giñan bai-ta Urbion'eko ain ospetsua dan «Laguna Negra», Zingera Baltza esango dogu, nai-ta baltza izan ez, oztin-orlegia baiño. Izadiak euki leiken bastarrik lulluragarriena bera; ler, pago ta aitz-mustur ikeragarriz ingurututa. Urbion'en Sorkaldean, amaibako lerdian aurkitzen da zingera ikusgarri ori, bertan ikusten danez, lur mamintsuak eurak, piñutik gaiñera berez erneko aretxa ta pagoa be barrabarra ikusten dalako bertan. Ba-ekien gure asabak non egozan mendi aberatsak, bai orixe!

Alderdi baketsu zoragarria laga ta jatsi giñan Covaleda'ra pizkat bera ikusi-ta jarraituteko Burgos aldera, Regumiel da Quintanar de la Sierra'n bitartean dagon Revenga zeleikada ikusgarrira, gau baketsu bat igaroteko, ta bertan dagon zenbait jakingarri ikusiteko asmuaz.

Ler ederrez apaindutako zeleikada ontan txadon polit bat dago Revenga'ko Ama Neskutsa Zaindari dabela ta, antziñako etxe mardo bat iturri barri apain bat aldamenean dabela. Etxe ortan, gitxienez urtean bein, inguruetako iru edo lau erriko agintariak bilduten ei-dira aran artako ar-emonak eta arazoak erabagi ta zuzenduteko. Baita zelai orren baster baten aurkituten da antziñako ildegia, erdi gazteleraz edo gerkaeraz «Necrópolis» esaten dautsena, zarzale ta edestilarientzat garrantzi andikoa, X edo XI gizaldikoa ete-dan esan lauskuen baiña ziurtasun barik; antziñako euskotarrena? edo zein abendakoena? Bera ikusi-ta Elorrio'ko Argiñeta'ko illobiakaz gogoratu nintzan, nai-ta onek, Argiñeta'koak arrilanduz egin-da dagozan artian, Revenge'koak arri bizian, aitzean bertan landuta dagoz, gure argazkian ikusten diran lez, eun da ogei ta zazpirarte, txiki ta andi. Izkiek be bai ei-dagoz, baiña lurrez da arriz estalduta, arduabakoak apurtu ez-dayezan. Ildegi ortatik lau bat aneineurkiñera, Urbion'erantza igonda, beste orretaiko ildegi bat be ba-dago ta, erakutsiteko gertu egozanak aurkitu genduazen, baiña, beste zerbait geiago be ikusi nai genduan da, ezgiñan joan.

Alderdi artan, nai-ta Burgos lurrak izan, beste eusko aztarrenik ba'dago; Kanikosa edo Ganikosa goi-erri txiki bat Revenga'tik sei edo zazpi aneineurkiñera eta, erritxua dagon alderdia ikusi eskeitiño, eztago zalantzarik beren izena Garaikotsa edo Ganekotsa dala.

Esan bearrean gagoz, alderdi ortako erriak bertoko lerdiak emoten dautsen aberastasunetik bizi dirala, ta ezta bera txikerra!, abere ta lugintzatik baiño geiago, bertako zugadi ikeragarri geien bat bertako bizitaleanak diralako.



Alderdi baketsu zoragarri orreik itxi bear genduzan da, urten giñan Kintanar de la Sierra'tik Errioxa'rantz, bidebatez Neira mendidira igon bertako goizingara, anei ta zortzireun edo geiago neurkin goitik, garbiak ikusi ta, pozez beterik mendiko bide zabalak zear eta gero bitxabal latzak'tatik Naxera'n Neskutza'ren txadon ikusgarria ta abar, ikustetxu bat egiñaz, geure Bizkai maitegarrira pozez barriz itzuliteko.

ALTUNA'TAR JOSU

MARTIN LUTHER KING ETA GIZARTE-ERRIKETEN ALDAKUNTZEA

«Stride Towards Freedom» —Azkatasuneruntz Urratsa— bere idazlan orretatik jaso doguz urrengo idatz-zatiak; bere ta bere antzeko gizon bakezale baiña makurtu ezin dituenen omenez, gure Gotzon zana dogula euron artean:

Gizasemeak, zapalketearen aurrean iru eratako erantzunak daukaz. Bata, zapalketa ori uts-utsean onartzea da. Azpiratua, bere zori orregaz etsita dago. Jakinjakiñean eta ixillik zapalketara makurtzen da, ta orregaz egokitu. Azkatasunaren alde izaten diran ekintza guztietan, batzu-batzuk azpiratuta jarraitzea naiago izaten dabe...

Edozein arauketa oker, ardura gabe onartzea, berorri laguntzea da. Ortik, azpiratua zapaltzaillearen okerbideetan lankide egiten da. Okerraren alde ez izatea be, onaren alde jokatzea aiñako egin-bearra dogu. Azpiratuta dagonak ez dautso unetxo baten be bake-aldirik itzi bear zapaltzailleari. Gizon bakoitzari, bere ziñesmenak, bein eta beti, bere anaiaren zaintzaillea dala gogoratzen dautso. Bidegabekeria ta bereizketakeri edo diskriminaziñoa ardura gabe onartzean, zapaltzaillearen ekintzeari zuzen-legetasuna emotea aiña da. Norperaren barrua lotaratzea lez litzake. Giro orretan, zapalduta dagon ori ez da bere anaiaren zaintzaillea izango. Orrezkero, etsita bizi izatea —sarritan biderik errezena ba'da be— ez da gogo-legetza zuzenaren bidea izaten. Koldarren jokabidea baiño...

Zapalketearen aurrean, azpiratuak daben bigarren erantzuna, indarkeriz iñoren soiñean kalte egin eta gorroto erresuminkorrez burrukatzea litzake. Indarkeritik iñoiz, ondoren batzuk be lortu daikez, apur baterako. Sarri, baita, erriak euren azkatasuna guda-jazarretatik idoro al-izan dabe. Ala ta be, alditxo baterako garaipenak izan arren, indarkeritik iñoiz be ez dator bake iraunkorrik. Ez dau gizarteko arazorik bideratzen, bai okerkeri aundiagoak sortu ugari.

Enda arteko zuzentasuna lortu naian, indarkerietan murgiltzea gogo-legetza zuzenetik urrin dago; lortzeko bidetik be beste ainbeste. Bai, lortu eziña da; beera doan zurubil bat dalako; azpian, gorrotoan kokatua, baita guztia birrindu naian be. Antxiñako agindu zar arek: «begia, begiaren truk», danak itxutuko leukez. Etsaia onez erakartea baiño beeratzea maiteago dabelako, ezin izan gogo-legetza zuzenekoa; maitasunak ez ezik, birrindu gureak eraginda diardu-ta. Giza-alkartea apurtuko leuke, ta anaitasunari bideak itxi. Bakar-izketea dakar gizartera, eta ez da alkar-izketarik izango. Indarkeriak berak, barruan daroa ber-bera ondatuko daben indargaiztoa. Bizirik geratzen diranen artean, samintasuna loratuko dau, ta zakarkeria ondatzaillen biotzetan...

Zapalduak, azkatasunaren alde jokatzeko, beste bide bat dauke: Bakez-jarkitzea. Hegel'en irakasketen laburpena lez, bakez-jarkitzearen oiñarria, ertz bi areitan legokezan egiak alkartu naian dabil —etsita dagozenen eta indarkerian diarduenenak— ta bide batez, bi orrein ertzerakeri ta makurkerietatik igesik doa. Bakez-jarkitzean dabillenak, etsita dagonaren soin-kaltezko ekintzarik ez erabilte ori on-artzen dau; bardintzaren neurriz baiña, indarkerian diarduanak lez, okerkerien aurrean jarkitzea on-artzen daki. Aren ezer ez egitetik igez dagi, baita bestearen indarkerizko jarkitzetik be. Bakez-jarkitzeagaz, iñork ez dauka zertan zuzengabekeriaren oinpean etsi, ezta indarkeririk be erabilli okerrak zuzentzeko.

Nere ustez, gaurko enda arteko larrialdi onetan, au dogu baltzen ekintzea zuzenduko daben jokabidea. Bakez-jarkitze onen jarkitzez, arauketa okerra burrukatzean, baltzak gizandi izatera letorkez; orregaitik eta arau orreik burutzen dituenak maitatzen dakielako. Baltzak, bere erritar eskubideen alde, gartsu ta zorrotz burrukatu bear dau, ez dau baiña ori lortzeko era okerrik erabilliko. Ezta iñoiz alkartu be guzur, maltzur, gorroto edo birrinketazaleekin.

Bakez-jarkitze au dala-ta, baltzak, beste asmo-oneko gizasemeak bildu al-izango ditu, bardin izatea lortuko daben burruka onetan. Ez da burruka au, berez edo berean, gizonen arteko burrukea, zuzentasunaren eta zuzenbagekeriaren arteko bultzakada bat baiño. Bakez-jarkitze au ez doa zapaltzailleen aurka, zapalkeriaren aurka baiño. Gogoaren barrutiak alkartzen dira ikurrin onen atzetik, ta ez enda-alkarteak...

Bakez-jarkitze oni jarraitzean, oiñaze ta neke-eskeintzak on-artzen dira. Ondoren, espetxea letorke... edo eriotzea bera. Eriotzea baiña, gure seme-alaben azkatasuna ta gizon zuriak gogoz ez iltearen ordaiña ba'da, ez da orrenbesteko erostaille litzaken ezer besterik.

* * *

Azken lerro oneitan, Luther King'en maitasunezko, alkar-onartzearen eta zorion billaketarako erakuspena damosku, ta ez nekepean lotuta bizi diranentzat bakarrik, baita neke-eragilleen artean diranentzat be.

Iraultzaren bere azterketa au, gogo-eragingarri zuzenenean oiñarritzen dau, naizta gaurko gizartea, bakarraren edo banaka gitxiren onerako jokoari guztia eskeintzen jakon gizarte makur bat izan. Esan dagigun ba: gizarte-erriketako arazoak, gogo-legetza zabalari dagokiozan arazoak dirala, sakon-sakonetik. Gizarte zoriontsu ta jakin-jakiñean gogo-legetzaduna lortuko ba'da, gaur gizarte-erriketan azpiratzemakurraren eusle ta bultzagarri ditugun egitamuak aldatu bearko dira; orreitatik ba, dagokien ondorena letorke: belaunaldi barri azpiratu ta gogo-makurduna.

Geure gaiñean dogun azpiratze onetatik azkatzeko bear dogun aldaketa au, ez dogu norgabeko edo mugatubako elburuetan oiñarritu bear —azpiratzearen aurka ekin, baiña ez azpiratzailleen aurka— ta norgabekoa esan dogu, azpiratzeak gizaseme guztiak, azpiratuak eta azpiratzailleak, alkarri lokarrituta daukazelako; or da ba euren bizi-ganorea. Ta ikusi dogunetik, iñoiz gogo-legetza zuzenik ba'litz, errez esan daikegu ez dala zuzentasun eta zuzengabekeriaren (egoera norgabeak diran artean) arteko bultzakadaren arazoa, ezta gizasemeen artekoa be, zapalketarik ez litzakela izango baiño.

Baiña gogo-legetza zuzenik ez dan artean, zapalketea izango da, baita beste aldera be, ots: gitxiren on-izateari, besteak azpiratuz, uztiatuz eta zapalduz iraunarazten jako; orretarako, gitxi orreik, gaiñetik izatearen egoereari eusteko, irixpide guztiak onartuko dabez, ta euretatik bata, indarkeria: indarrez gogoak eurak be aukerabideetan erabilteraiño —orretarako dabez iragar eta izpar zabaltzeko asmaketak.

Gizarteko iraultzatzaz daben burutapen orretan, ertz biren erdian diardu Luther King'ek, ezer ez egitearen eta indarkeri utsaren bitartean. Agertzen dauskun indarkeri au, bide lez artu ta indarkerietan indarkeri utsean jokatzeraiño lotzen dan neurrikoa da, gizasemeen aberekeri gangarra. Ara baiña, lenago esan dogun besteen indarkeri ondatzailleari aurkezteko bearrezkoa dan indarkeri erabidezkoa be ba-da, azpiratuta dagozanen soin eta izatearen betirako ondapenari gogor egiteko, ta azkatasuna lortzeko.

Bere bakez-jarkitze orren asmotik, iñoiz azpiratzailleen ondo-izate ta ziurirautea galbidean jarriko ba'litz, beste oneik euren legeetako indarkeria ezarriko leuskioe, ta une egokian asmo areik ezereztu.

Uste gitxienean, bere gizarte-iraultza orren asmaketea bera, zati baten beintzat, bere soiñean ondatu al-izan dabe bere azpiratailleak. 1968'ngo Jorraillaren 4'an, berun zati erailtzaille batek bizia eten eutsan Martin Luther King'i.

IRIARTE'TAR IÑAKI

AGUR

II URTEA
12 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - URRILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ONDAKIÑAK

Euskalerria beti izan da Erri txikia, gizarteko arren artean txikienetariko bat lurrez eta lagunez. Baiña beste erri asko aundiagoak, len izan zirenak, gaur ez dira eta gure Erria ba da. Beste erri asko zapaltzailleak eta «inperialistak» izan dira, baiña gure Erria, bereagaz naikoa ebala, iñoiz billa ez zan joan. «Inperio» aundiak jausi ziran, guna gaur be emen dago, bizirik, eta bizi gurarik, iñoz baiño biziteko gurari biziagoa dauala.

Gure Erria ez da iñoz aginpidez bat izan; bere kondaira guztian, izkuntzaz eta kondairaz bat izan arren, aginpidez eta berarizko izaeraz banatu agertu da. Naparroako erregeak, euren euskaldunma galduta geienetan, nagusekeria agertu eben. Au egia da. Ezin ukatu. Ez dira gure erriaren ordezkari.

Eta Erri txiki bat izan arren, asko etorri dira gure billa, askok billatu gaitua, azpiratu be azkenengo urteetan bai... baiña Erria emen dago, bizi da.

Il zorian ete dago gure Erri au?

Ez dot uste. Gure arerioak sendoak dira, baiña Erriaren bizia geroago ta odoltsuagoa da. Oindiño bizi gara.

* * *

Bere izaera bereziak konturatzen ba'doguz, zazpi eitilan, zazpi errialdetan, dago. Errialde oneik euren kondaira eta berezitasunak ba dabez. Bat, erregaitiño, izkuntzea, ta endea, baita alkar maitasuna bere. Sakon-sakonean batasuna egiten dauana endea da. Agirian, ostera, izkuntzea. Edozein, erritakoa izan arren, euskeraz, mintzatzen dana anai lez ikusten dogu, euskalduna da, bai euskalerrian, baita mundu osoetan bere.

Lurrak berak bere, batasun au agertzeko laguntzea emoten dausku: lur emoillea, lur maitagarria, lur batua. Auñamendi dago erdian. Muga bat daukagu bitartean, baiña gure ama lurra da. Inok kendu ezin daikegun lurra da, «geurea da ta».

Berezitasuna konturaturik, lurralde guztietako naskaldunak alkarreri itzaltasun aundi bat izan diotsagu: bakotxa bere lekuan, bakotxa bere izaeragaz, baiña guztiok anai, guztiok Jainko bakaren seme-alaba.

Bakar-etxeetan geienetan, lenago, bizi izan gara. Eta etxe bakotxat besteari itzaltasuna. Eta itzaltasun au izan ez danean asarre biziak, burruka gogorrak, bein baiño geiagotan anai-odola lurrean.

* * *

Gaur zazpi lurraldeak, batez be ipar-aldean, oso argi ez dira agiri. Bai ostera zati mingarri bi: iparraldea ta egoaldea, Auñamendi erdi dala. Iparraldekoak laterri bateri lotuak, egoaldekoak beste bateri eta erdian geurea ez dan muga tamalgarri bat.

Ortik erri-bizitzaren indarra galtzeko arriskua. Batzuk goitik tira, beste batzuk betik tira, azurrak apurtu arte.

Gure aurretikoak egin eben kondairak ori ekarri ba'euskun be, ezin gogoratu barik itzi Juan ogei ta irugarrenak esan ebazan berba gogoragarriak: «Erri txiki onein bizia ta aurrerapidea gitxituteko joiten dan guztia zuzentasunaren aurka egiña da da ainbat txarrago, oindiño, endea bera ezeztutera ba'doaz ekiñaldi orreik. Zuzentasunak eskatzen dauanagaz dago, ostera, agintariak erri txiki onein alderdi onak indartzeko lan egitea, batez be euren izkuntzea, jakintzea, lege zarrak, irabaz-iturriak ta asmakizunak».

Kondairak diñoanez, orain eun da ogeta amabi urte zirala, beste era batera zan gure egoerea. Kanpoko jaun bat geunkan, egia da, eta arrisku aundia zan ori, baiña jabetasun bat galdu barik. Gero ikurri ziran guzurrak, gudak, nasteak... eta dana galdu gendun; lenengo lege zarrak, gero geienez, diru erabiltea...

* * *

Eta gaur emen gara, kondairak ekarri dauskun tokuran, txikiak, il zorian...

Zer egin bear dogu?


Sakonak dira, benetan, gaurko gizadian, ekonomi-arazoak, eta oneik ezin aztu. Baiña ez daigun ahaztu gaitik Erria saldu. Erri-arazoa gero zuzendako dalata ez gaitezan auzoko arazoai begira egon. Lenengo zuzendu daigun etxea, gero auzoko arazoak. Aldiz baterakoak ba'dira bere, buruz lenengo erria konturatu daigun.

Erriaren ezaugarri agirienak biztu daiguzan: izkuntzea, oiturak, jakintzea, izaekera berezia, ta abar...

Antxiñako jabetasunaren ondakiñak artu doguz, lege zarren ondakiñak daukaguz... Izkuntzaren eta oituren ondakiñak itziko ete doguz, ala oneik be galdu?

Ondakiñak artu ba'doguz, sutazpiko su-gar illa biztu daigun; ondakiñak gai dirala, betiko Erria biztu daigun.

AGUR



Zuen arbasoek, beren egunetan burutu zituzten egitekoak, gogora itzatzute; eta, betiko ospe eta izena iritsiko dituzute.

BERMEO'KO TXORI-ALAIAK

Fradua'tar Jon, bermeotar langille zintzo baten ekintzearen barri emon gura neuke. Bere eguneroko lana amaitu ondoren —bizargillea danez, zenbat ule ta bizar ebagi ete-dauz?— beste zerbaiten be ba-diardu. Luzeroko lan aspergarriak egin bear izaten dauz zutiñik egun guztian, eta esku atzamarrak oztu eta eragiñaren eragiñez, bermeotarren buruak apaindu. Ala ta be, artazi ta labaiñea zorroztu, ondo be ondo garbitu ta obeto legortuta arazan izten dituanean, illuntzean, ez da irabazitako atzedenaren billa joango: or ikusiko dozu barriz, bere atzamar bizkor orrei eragiten, oraingoan, kitarraren loro ereskintsuak izango dauz erabilgarri.

Ta aor, bere doiñurako zaletasun au andiegia dabela, ez dau beretzako bakarrik gorde gura izan, ta orretarako gertu aurkitu dituanei be kitarrea jotzen erakutsi dautse.

Aspertu ezin alako ekin eta ekin orrek, oraingoan izan dau ondoren amesgarriena: TXORI-ALAI taldetxo alai ta zoriontsua sortu al izan dau; zortzi bermiotar gaztetxu, neska ta mutil, euren kitarren jabe ta jotzaille entzungarriak ditu bere doiñu-aur lez, jaiao barriak.



Emen dituzu amar urteko Aranburu'tar Miren, Eroa'tar Miren-Biotza, ta Apraiz' tar Adiran; amaika urtedun Iturbe'tar Jon; amabi urte bete dabezan Elduaien'dar Miren-Gotzone ta Alegria'tar Miren-Lur; amalau urteko Mallabiabarrena'tar Jon, eta danon anai-nagusia ba'litza-edo, amasaei urte bete dituan Garmendia'tar Patxi.

Ta ez uste izan, etxe baztarrean edo bizarkentzaillearen lantoki-ostean bakarrik entzun daikezuzala; erririk-erri be da-dabiltz, eta Bakio'n emondakoa entzun ebeneri galdetu besterik ez dozu, zer nolakoan diran jakiteko ta zelako eusko-abesti politak dakiezan joten, kitarra ta guzti. Izan gogoan, Fradua jaunak sortu dauskun bermiotar TXORI-ALAI'ak txorrotxio andiak joko ditu laster, ori ta geiago be ba-dakie-ta.

SOILLUBE'KO ESTITXU'K

EUSKERA, SARTU ADI ETXERA!

Ez dakit nik gure Etchepare aundiak «euskera jalgi adi plazara» esan ebanean, zelako giroa ikusiko eban, baiña bere asmoa argi dago: gure izkuntzea toki ta mailla guztietara igo ta zabaltzeko eskari larria egin eban.

Nik gaur, eta parkatu iritzi bardiñekoak ez zarienok, «euskera sartu adi etxera!» esango neuke, ta garrazi bizi ta mingorrez esan bere. Bai, euskera sartu adi etxe barrura, euskaldundu egiñaz etxe bakoitzeko baztar guztiak!

Guraso askok, bietarik bata, eta sarritan biak euskaldunak izan arren, euren umetxoei erderaz egiten dautsoe, ta ez baserritar konplejodunak bakarrik, kaletar ikasiak eta euren burua errizaletzat daukatenak be bai. Sarri, umeari euskeraz egin arren, euren artean erderaz ekiten dautse... ta jakiña, umeak bere erderara joten dabe. Iñoiz, eurei olakorik esan ezkero, «si, es verdad, pero ahora va a empezar a la ikastola» bere entzun dogu, ta ori, jaun-andreak, alperrik da!

Ez da naiko umeak ikastolara bialtzea, al dan neurrian edo al dabenak beintzat, lenengo ikastolea etxean bear du. Eta ezagutzen doguz Euskaltzaindiko diran gizonak, euren etxean tautik egiten ez dabenak, emazte ta seme-alabak euskerarik ez dakitenak. Zelan ba «euskaltzaiñak» dirala-ta eredutzat artu? ori, jaunak, lotsagarria da, edo obeto esateko, «lotsagorria», euskerea burua erakusteko edo tresnatzat erabiltze ori.

Ikastolak aitatu doguz, zorioneko ikastolak; bearrezkoak doguz gure umeak eskolatzeko, ta euskerea ez dakien gurasoei euren ametsik ederrena egi biurtzeko, umetxoak euskalduntzen laguntzeko. Geiago nai ba'da, umeen artean euskal nortasuna ta pentzakerea sorterazteko, baiña, ta emen asten dira betiko «baiñak», oraintsu prantzezez irakurri dogun idazti baten itzaurreak arrituta itzi gaitu. Itz-aurre orretan Jean Paul Sartre'k diñoanez, amabost milla ume dira Euskal-Erri'an ikastolaren bidez marxismoan eziko diranak.

Ori ez da egia, ba-dakigu, baiña alako idaztiak ez doguz guk bakarrik irakurten eta, makalik lur labanean oiñarrituta daukaguzan ikastolei olako etiketak jartzen ba'dautzez, ez gero arritu oztopoak eta debekatzeak geitzen ba'dira... nor errudun? Giro gaitzaren gain euskerea tresnatzat darabiltenak, ez besterik.

Ez dala egia esan dogu, baiña guzur osoa bere ez, bear ba'da, Sartre'k diñoana. Ikastoletako guraso geienak, euren umetxoentzat, kristau eziketea nai dabe, benetako kristau eziketea. Olakorik nai ez dabenak errespetagarriak dira, nihilista, ateo, edo beste erlijiñotakoak. Orrez gaiñera, izan leikez euskalzaleak, zergaitik ez? Erreza dabe arazo onen amaia, bildu beitez eta sortu beite eurentzat ikastola bat, baiña ez besteei adarra joten etorri.

Ala, Kristotzaz edo Ama Birjiñeatzaz itz egiteko garaian, umeak aldenduko ba'lira, ez litzake «diskriminazio» itsusia izango? Ala dirudi beintzat, umeen sikolojiaren aldetik. Guk dakigunez, gitxi dira olakoak, banaka batzuk, baiña kezka gogorra sortu da ikastola batzuetan eta «progresismo»aren izenean arrera ona ta bigunkerizko ardurak izan dabez zuzendaritza batzuengandik...

Ez goaz baiña emendik aurrera ixilik egotera; iritzi zabalekoak bai, baiña gurasoen arteko batzordeak dira eziketa-giroaren jartzailleak; euskalduntasunaren barruan ikastola mota bi egon leikez, ez bata baiño bestea obea, ezbardiñak. Gauza oneik argitzen alegingo gara, naizta lagun eta zuzendari bat baiño geiago mindu. Egia aurretik, eta nere umeakin ez du iñork jolasik edo maniobrarik egingo.

Bein baiño geiagotan esan dogu ta barriro bere esango: gure seme-alaben eziketea gure eskubide bakarra da, naizta biar edo etzi eurak beste iritzi batera biurtu edo ez. Geienok alako edo olako kristau eziketea nai ba'dogu... aurrera! Eta gauza onen gain arazorik ez dala sortu diñoanari ez siñestu; giro au «trinfalismo» barik ikusi bear dogu; irakaskintzako mailla guztietara eltzeko bidea landu... baiña kontuz! Lenengo elburuak ondo oiñarritu!

Amaitzeko, len esandakoa: ikastolak bearrezkoak doguz, baiña lenengo ardurea gurasoena da, euskerea etxeratu bear dogu, sukaldera sartu. Lenengo egunetako alkarrizketan ez dagola erreztasunik gai guztiak erabilteko? Apurka, apurka, bai... bestela alperrik umeari euskeraz egitea, gure artean erderazko jardunean ba'gabiltzaz. Negargarria izaten da ikastoletako ate geienetan «amak» eta laguntzailleak, euskaldunak izan arren, parra-parra erderazko barriketan entzutea. Etchepare'k esan eban lez, euskera, urten plazara, igo mailla guztiak, baiña sendotu zure etxeko bizitza larria.

Euskerea atzerantza doala? Geienean geu errudun.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

BILBOTARRAK MORGA'N

Nire etxeko ate aurrean norbaitzuk deika daukadazala-ta, ba noa beera, ta ate ondoan gazte bi: mutil bat eta neska bat. Biak gaztegazteak. Nungoak diran eta euskeraz erantzun:

—Bilbotarrak gara.

—Bilbotarrak eta euskeraz?

—Zergaitik ez, ba?

—Guztiak egingo balebe, makiña bat obeto litzateke gure izkuntzarentzat.

—Bai orixe!

—Zer dakazue, ba, Morga'ko bazter onetara?

—Ara! Gu ezkongaiak gara, ta ezkondu baiño leen, gure euskera ontdoxo ikasi nai genduke, gero gure seme-alabei be gure izkuntza maitea irakasteko.

—Ederto! Ta gero mutillak neska gazteari:

—Euskeraz ez badakizu, ezin zaitekez nigaz ezkondu. Ta neska liraiñak irribarrez:

—Ezkondu, ezkondu... ori gero ikusiko dogu. Orain euskera, euskera ikasi, berba egin, al dan guztia sakondu, ez izenez bakarrik izatez be euskaldunak gareala edozeiñen aurrean egiztau daigun

Egundoko poza izan neban, olako gazte jatorrak neure aurrean ikusita. Onango neskamutillak ugari ta ugari bear doguz Euskalerriaren eta euskeararen onerako.

Mutilla lanera joan da, oporraldia amaitu jako-ta. Ta neska gaztea —nire adiskide batek amairu urte bakarrik emon eutsazan— Morga'ko etxe baten gelditu da eta ementxe daukagu gogoz be gogoz euskera ikasten. Jakin be polito daki, Juan Anjel Etxebarria'gaz eta Xabier Peña'gaz ikasita. Orain, euskaldun utsak diranakaz berba ta berba egin gura dau, itzegiteko erreztasuna lortu daian.


Lenengo egunetan aspertu egingo zala uste neban, gogait egingo ebala onango erri xee baten. Bilbo'n jaioa ta bizi izana izan ezkero. Baiña ez, orain dakust ez dala aspertuko.

—Euskera maite-maite dot, diñost berak. Bai, ba! Maite-maite izan bear auzune txiki batera etorri ta beste zeregin guztiak alde batera itxi ta euskal berbetea ikasten jarduteko. Maite-maite izan bear, bestela ezin!

—Bilbo'ko giroa ez jaku atsegin, iñosten gazte biok. Ez, ba! Euskalduntasuna daroe buru-biotzetan, eta euskaldun jatorrak euskal giroa opa izan. Ta nik barriro be neure kolkorako: Olako gazteak bear dauz Euskalerriak. Olakoak, olakoak...

PUXANA

POZAK ETA KEZKAK



Esanaren esanez ia siñistu

Zezen-plazetan egiten diran erakusketa barregarriei, «empastre» edo «charlotada» deitzen dautse. Orreitako antzelari barregarriena «bombero torero» deritxona izaten da. Euskereak be ba-du bere «bombero» ori, «erregalo zaratatsuak» ipinteko eskatzen dauana. Barregarria benetan erdi-euskaldun orrek gure aldizkariagaitik «egiazko euskerarekin irudiren bat duen hizkuntza» darabilgula esatea. Ez daki euskerarik, ezta «erregalo zaratatsurik» ipintin be. Orretarako «zeozer» bear da ta leukeenak gure lagun izan ez arren, ez dautse axaxalari orri jaramon larregirik egiten. Orren sasi-iritziak ezagunegiak dira.

* * *

Norbaitek, bein, abesti au egin eban: «gizona kartzelan sartu dute, zer egin du? zer esan du? Justizia pizka bat eskatu du... eta poeta, eta poeta etxean gelditu da bildurrak eraginda... Ai poeta, ai poeta gogorra izango da zuretzat askatasun egunа... eta parkatu benetako poetak!

* * *

Egi-egitan, zorionak emon bearrean gagoz aldizkari bateko marrazki a asmatu ebanari; marraskilloa H baten goraka margoztu ebanari. Adarrak gora-beera, «oportunismo»agaitik bere eretziak aldatzen dituanak ez du besterik merezi!

* * *

Z. A'ren 448'gn zenbakiko «Zenbat Gara»ren egilleak diñoanez, Bilbo'ko erdel egunkari batek argitaratutako «El Vascuence hoy» idaz-lan bildumeak ez du bapere atsegindu. «Behar dan maillarik ezak», eta gutzat bakarrik gorde bear doguzan egi garratz batzuk zabaltzeak mindu du, noski. Baiña ukatze orren gaiñean, euskerantoren alde zin egindakoren batzuk izan ba'ziran egilleak, betaurreko ezbardiñekaz ikusiko ebazan, ziurki; «funzionarioak» beste Bilbo'ko egunerokoetan idazten dabenak euron tartean... Aspalditik ezagutzen gaituk, mutil!

PIPER-ZIRI

JOSKERA OKERRA

Joskera edo sintaxis kontua baiño txirristadakorragorik ez dago gramatikan.

Guda aurreko EKIN aretan gai au irakasten asi zan bein idazle bat. Bi edo iru idazlan argitaratu ordurako beste idazle bat gaiñera jausi jakon bere irakatsi guztiak oker egoazala esaten. Ta antxe amaitu ziran lenengo aren jardun guztiak.

Niri be beste ainbeste ez dagidala jazo. Gaiñera ni ez noa irakatsi orokorrik emoten astera, esaldi bat edo besteren okerra agertzera baiño.

Gai onetan maixu lez Altube jauna ezagutzen da ta bere «ERDERISMOS» liburua joskerazko ebanjeliotzat. Ala be ba-dira liburu onetako sintaxis legeak beartu eziñekoak dirala diñoenak. Nire itaun batzueri erantzuten olan berba egin daust euskera jakitun batek: «Altube jaunaren obra ondo ezaguten dut, baiña hango legeak ez dira, noski, euskera literarioak mendez mende gorde dituenak, eta orain, goizetik gauera, euskaldun guztiei hoiek ezarri nahi izateari ez derizkiot ondo».

Nik onen ondoren auxe bakarrik esango dot. Izkuntza guztiak izango dabez kontixu sintaxis legeak; euskera ez da izango sintaxis legerik ez daben izkuntza bakarra. Bai, euskerak ba-dauz sintaxis legeak eta nagusienak Altube jaunak bere idaztietan aitatu dabezanak izango dira ezpai barik. Sintaxis kontuetan estuegiak ez garala izan bear esatea beste gauza bat da. Baiña lege nagusiak bete bearrekoak dirala ukatu eziña da ta lege guztiak zeatz eta errez beteten bagenki be obeto izango litzakela.

Ara ondoren esaldi batzuk bi sailletan; ezkerrean idatziak izan diran modura ta eskuman gure ustez esan bear liraken eran.

Esan dabe	**Esan bear da**
Gipuzkoa'ko paisajeak dira geienak, itxasoak eta mendiak.	*Gipuzkoa'ko paisajeak, geienak, itxasoak eta mendiak dira.*
Martxoan, arte alorrean gauza gutxi interesgarri gertatu da.	*Martxoan, arte alorrean gauza interesgarri gutxi gertatu da.*
Osasun barik gelditu zan gizona, eta Etxenagusiko etxeandera gaztea andik egun gitxi barru gelditu zan alargun.	*Osasun barik gelditu zan gizona, eta Etxenagusiko etxeandera gaztea andik egun gitxi barru alargun gelditu zan.*
Bein bizi omen zan mutil bat eta izena zuan Xabier.	*Bein mutil bat bizi omen zan eta Xabier zuan izena.*
Bizi gaitezen Hari elkartuak, fedez eta amodioz alkartuak.	*Hari elkartuak bizi gaitezen, fedez eta amodioz elkartuak.*

(Goiko onek ez dirudi uts andia. «Ondo bizi zaite» esaten da; au da, NOLA? itaunari erantzuten dautsana da esaldiko berbarik garrantzitsuena, beraz NOLA BIZI bear dan esaten daben itza aditzaren aurrean joan bear da: «ONDO bizi zaite».

Goiko esaldian be bardin: «HARI ELKARTUAK bizi gaitezen...»)

Erruki dakigula Jainko guztiz altsua eta gure pekatuak barkaturik eraman gaitzala betiko bizitzara.	*Erruki dakigula Jainko guztiz altsua eta gure pekatuak barkaturik betiko bizitzara eraman gaitzala.*

(Goiko esakera onen egilleak maixuak izan dira ta bildurrez dakart maira. Eurak be erruki dakidazela ta idizil gogorrez ez naiela zigortu.

Goiko esaldi ori indikatiboan balitz ola esango gendukela uste dot: «...betiko bizitzara eraman nau». «Aitak zinera eraman nau», «Senargaiak akeitetxera eraman nau», ta ola esaten da. Au da, lengo jardunagaz zer ikusirik ez daben zerbait barri esaten dogunean konplementua izaten da inkiridua edo esaldiko garrantzitsuena ta beraz aditzaren aurrean ipiñi bear dana. Olantxe goiko esaldi orretan be. «...BETIKO BIZITZARA eraman gaitzala»).

KAMIÑAZPI

BASAURI'KO SAN MIGEL

Orain ille batzuk aldizkari onetako ale baten Arrigorriaga'ko abedeen buruz ekin eutsan artikulo bat irakurri neban.

Nik orain erri onen ondoan dagon Basauri'ko S. Migel deritxon auzune bateko abadeen buruz zerbait idatzi nai neuke. Auzune onetan (len erria), «Tanjer» deritxon bere auzunetxo baten izan ezik, banaka batzuk euskeraz itz egiten dabe, batez be nagusienak.

Iru abade dagoz bertan, irurak euskaldunak. Ba-dira urte batzuk Euskalerrian mezetan euskeraz itz egiten asi giñala, baiña erri onetako abadeak (iruren errua danik ez dot esan nai onegaz) erderaz.

Auzune onetan euskerazko girorik ez dala diñoe (euretariko batzuk beintzat). Zer da euskerazko giroa? Ala «Tanjer»'ko guztiak euskeraz ikasi arte itxaron bear ete dogu ba? Giro ori lortu egin bear da; abadeak eleizan, gurasoak etxeetan... baiña danon artean.

Euskal talde bat dago bertan; eta oindiok lo egon arren asko, euskeraz egin bear ditu abadeak bere eleizkizunak (euskeraz eta erderaz), talde ori eleizan aurkitzen danean beintzat, eta talde (txiki naiz aundi) onentzako euskeraz Meza bat jartzea ez litzake txarto egongo.

Txinger bategaz iñok sua ixotzea nai ba'dau, putz egin bearko dautso, baiña putz egin barik beste egurrak ez dabe iñoiz surik artuko; ta erria be berez itxartuko dala uste dabe oneik.

Ume batek goserik ez ba'dau sentitzen, ez dau iñoiz janaririk eskatuko, baiña jaten emon bear yako, ostantzean il egiten da. Bardin jazoten da gure erriagaz be; ainbatek ez dabe eskatuko euskerazko Mezarik, konortea erdi galduaz dagozalako, baiña zentzun apur bategaz eta zintzotasunagaz jokatzea nai izan ezkero, derrigorrezkoa da euskaldun talde orrentzat (eskubide guztiak daukiez) euskerazko Meza bat jartea. Ta bardin esango neuke beste eleizkizun batzukaitik be: Sakramentuak, illetak...

S. Migel'en andik iñoiz igaro nazanean, entzun dot euskeraz berba egiten, eta euskaldun oneik ez ete dabe Meza baten Jaungoikoagaz euskeraz itz egiteko eskubiderik?

Gazteiz'ko Seminariotik urten eikoak, sasiteori asko jarten ditue sarritan euren «jakiturian» euskalerriari agertzeko. Ta txarrena beste borondate oneko batzuei be euren berba leun eta politakin bardin pentsau-azotan dautsee. Onako sasi-euskaldunakin jausi ta lokartu da len be gure erria. Erria ilteko arriskuan dagon bitartean, eurak (ez irurak laiñoetan teori politak egiten, eta guzti on «errealismo» baten izenean. Naiko kalte egin dabe len be gure erriaren aurka eleiz-gizakume batzuk, ta ez gaitezan orain be lengo gauzak gogoratzen asi.

Ta ikastoleagaz zer jazo da? Entzun dodanez arlo orretan be euretariko abade batzuk, urrin-urrindik baiña, zeozer egin eta esan dabe, ta ori dala-ta ez dira gauzak aurrondo joan.

Gauzak argi ta garbi jarteko ordua dala uste dot, eta benetan erriaren alde jo nai ba'dogu, berba politakin egindako sasi-teoriak alde batera itxita, erri ta euskerearen alde al dogun indar guztia egin bear dogu len daukaguz euren aurka naiko oztopo-ia.

ATANO

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

ARRAZOIAK ALA AITZAKIAK?

Etorkizuna eta gaztedia. Bata besteakin zer-ikusi aundia daben itzak. Zergaitik? ba gure gaztedian etorkizuna datorrelako. Gai guztietan begiraldiak ez dira geldituen gaurko egunean bakarrik; biarko eguna be gure asmoan izaten dogu. Danok dakigu gure izkuntsagaz jazoten jakuna, benetan konturatzekoa dala. Bai, gure izkuntzaren etorkizuna be, gazteen eskuetan dago.

Eta orain sortzen dira galderak. Garbia ikusten al da euskerearen etorkizuna?... zer itxaron geinke gure gaztediaren aldetik?... 2.000'gn urtean, adituko al da gure izkuntzea? Beti lez, galdera errezak ta erantsun zailak. Euskerearen etorkizuna, gaurtik asita lortu bear da. Baiña lan ontan oztopo asko artuten dira, eta oztopo oien artean garrantzi aundiko bat: EUSKALGAZTEDIA! Euskal gaztedia?... bai, zoritxarrez! Askok esango dabe oso gogorra nazala nire iritzietan; baiña gai ontan ez dago beste biderik gogorkeria baiño.

Euskerearen bizitza, gazteen eskuetan dago; eta gazteak (euskal gazteak) ez dira konturatzen zelako ardurazkoa dan au. Ez, adizkideak, gure gaztediaren artean ez da ausnarizen guk dogun orantzukizuna. Eta au ez da onartzekoa, nire ustez ez beintzat! Zergaitik gure gazteak (geienak) euskeratzaz bate ardura barik bizi dira? Ezin dot ulertu, eta uste dot ez dotala iñoz ulertuko. Zergaitik euskera galtzen ari jaku gure gazteen artean? Ez dakit. Zergaitik gazteak gero ta gitxiago egiten dabe euskera? Zer jazoten jaku gaurko gazteakaz?...

Euskaldunak euskeraz itz egin bear dogu, eta ori nai ta naiezkoa izango da munduaren aurrean euskaldun lez agertu nai ba'gara. Gure Erriko txoko politak, gure mendi ta itxas-basterrak betikoak dira. Baiña gure izkuntzak... IRAUNKO ETE DAU? Galdera larria benetan. Eta zer diñoe gazteak? Sortuko ete da euskerearen ezne berri bat? Gazte asko esaguzen dodaz (euskal-?-gazteak) euskeraz ez dakienak. Eta askotan entzun dodaz euren «arrazoiak» euskeraz ez egiteko. Eredu batez: euskera oso zailla dala; astirik ez dabela ikasteko; orain gure baserrietan be euskera galdu dala; etxean ez dala egiten; eta... EUSKALDUN OSOA IZATEKO, EZ DALA NAI TA NAIEZKOA!

Orain nik itauten dot... zer euki bear da ba, euskaldun osoa izateko? Erriko izkuntza norentzat da? Eurak jakingo dabe. Zer dira oiek... arrazoiak ala aitzakiak? Ez dakit, baiña arrazoiak ba'litzakez, oso makalak billatzen dodaz. A! ori bai, euskaltasunaren itxura asko, euskal iztegiak ugari, euskal diskoak... BAIÑA BETI ERDERAZ! Bai orixe! Eta bitartean, gure izkuntz laztana guztiz baztertua zoko batean. Ikusten dan ezkero, gure gaztedia oraindik Armstrong'ekaz dago illargian. Edo illargian dago, edo itxua da, ALA ZER?

Ez al dau gure gaztediak euskeraren deia entzuten? Euskaldun osoak gara; edo euskalduna izateak dakarren alde onari bakarrik begiratzen dautsagu?

Gezurrezko euskalduna izatea ez da oso gaitza. Eta olakotxeak asko doguz gure gaztediaren artean be. Eta bitartean, gure izkuntzea estualdi gogorrean dabil. Bai; gure gaztediak bere izkuntzea baztertu dau leku eta sasoi askotan. ARRAZOIAK ALA AITZAKIAK?...

Len esan dodan lez, galdera larria baiña guztiz bearrezkoa batez ere gure egunotan. Len ikusi doguzan «arrazoiak» ez dot uste gure gazteak daukien egizko arrazoiak (?) diranik. Nire ustez egizko arrazoi oiek beste batzuk dira; baiña, lotsaz beterik, ez dabez argi ta garbi esaten. Zergaitik gure gazteak ez dabe esaten egia?... zergaitik ez dabe esaten zelan bein baiño geiagotan gogoandu dabela... «ZERTARAKO BALIO ETE DAU EUSKEREAK?»

Inglesa bai, prantsesa be bai (txinoa be ikasiko leukie), baiña EUSKERARIK EZ! Eta au zergaitik? Jakiña ba, GURE IZKUNTZEA «POP» EZ DALAKO. Zergaitik gure gaztediak ez dau esaten ,zelan askotan esan daben: «Euskerea ez da uriarentzako, 'BORONO' en gauzea da-ta». Euskerea ez da entzuten gazteen artean. JAKI ÑA!, EZ DA OSO «IN» ETA...

Bai euskaldun lasaiak; bai gezurrezko euskaldunak. Orain badakiguz zuen egizko arrazoiak. Baiña arrazoi oiek ez dirala zentzundunak jakin bear dozue; ETA EUSKERAZ EGITEN EZ DABENAK EUSKALDUNAK EZ DIRALA BE BAI! Euskaltasun asko, itxura asko baiña egite gitxi. Ez al da ori txerrena izatea?

Bai, gazteok, gaurkoak be miñ asko emoten daben egiak dira; ezta? Euskerearen deia ez dogu entzun nai; eta askotan esan dot euskera ama dogula ta gure nortasunaren iturria. Gaurko gazteak ez ba'gara esnaizen, biarkoak ez dabe pauso bat emongo euskerearen alde. Ori be egia da. Gaurko gazteak, biarko gizonak izango gara. Eta euskerea ez ba'dogu zaintzen, etorkizunezko gizaldi edo giza-mendeak esango dabe: «Bai, euskera gurea izan gendun. Orain oroimenezko kutxan dago. Galdu jaku, baiña ez da gurea izan errua. 1971'ko gazteen eskuetan il zan betiko».

Barriro —zelan ez?— euskera ta gaztediaren gora-beerak agertzeko asmoan idatzi dot; eta barriro emetik, AGUR'etik, nire eskabidea euskal gaztediari: ZAINDUE TA GOGORTU EGIZUE AITOR'EN IZKUNTZA ZARRA!

Ezkauriatza'tar Xabier

EGUN ARGITZEAN

Gabaren illuna, poliki, poliki, izkutatzen zijoan. Kaleak bustita agertzen ziren, eta ia ez zan zakur eta katuen oiu eta karraxirik entzuten.

Eguna argitu zanean, zeru urdiña, eguzkia, egun berri bat agertu zan. Neure etxeko leiotik jendearen jun-etorria ikusten nengon bitartean, gizonak egun argitze bakoitzean, aukera berdiñak ote ditugun pentzatzen jardun nintzan.

Mutil elbarriak, esate baterako, eta Urtain'ek ez dituzte ludiaren aurrean aukera berdiñak. Iribar, Lasa, Perurena'k eta langilleen burrukak ez dira berdin ordainduak. Mutil beartsuak lotuta dagozten bitartean, aberatzak, aien ordez nai luken guztia egin lezake. Izan ere, Urtain, Perurena ta Iribar ajolagarriagoak izaten oi dira; oiek auzi gutxiago ekartzen dituzte zenbait gizonentzako, zenbait errietako. Gaiñera oien bidez irabazten eta etxeratzen dira txanponak. Ori sobra dakigu. Izan ere itz geiegi egiten da, ekintza kaxkar eta gutxi egiteko.

Itzak batzutan, askotan, sobra dira h tartean delarik.

Zabalkundearen bidez egiten da dena, publizidadearen; ori dela ta, obekio izaten da zenbait gizonen goratzea billatzea, bai kiroletan, bai lantegietan. Ekintza batek, zabalkunderik gabe egiten danean, arritu egiten gaitu. Gure esamesa, erraxa izaten da: «Izan ere biotz aundikoa zan orrelako ekintza egin zuana».

Egia, Biotza palta, anima, gogoa, aukera berak danok jasotzeko, burruka batean alegintzeko. Ori da eguneroko egia, eta beste gaiñuntzeko guztia, zera da: adarra jotzea.

Eta berriro, egun batean eudia egingo du gabean, zakurrak eta katuak karraxi egingo dute, ta apika egun berrian, zeru urdiña, eguzkia eta argia ikusiko ditugu.

RAMON ZAPIRAIN

ALDERATZE BAT

Baserritarrak mundu onetan eurentzat janaria batzeko asmoz, bear alperriko asko egiten dabe, sarri askotan ba, siketeak eroaten dautse euren batzai guztia. Eta siketea aitatu dogun ezkero, arto batzai baten siketea ta gizonarena alderatu daiguzan.

Baserritarrak, lenengo, artoa erein egiten dau, batzai ona batzeko asmoagaz. Arto onek bere burua lurrean agertzen emoten dauanean, baserritarrak bere atxurragaz lurra arrotuten dautso eta ongarria zabaltzen dautso, arto au indarragaz etorri daiten, baiña sarri askotan, baserritar onen asmoak uts-eginda gelditzen dira. Egualdiak laguntzen ez dautson ezkero ba, eguzkiak asko berotuaz, lurra legortu egiten dautso ta indarrik artzen ez dautso izten. Eta orrez gaiñera geroago ta txikiago egiten da landara ori ta azkenez, sarri askotan, zimeldu egiten da ta bea jo.

Ara emen, baserritar onen uda guztiko bearrak, egun batetik bestera, alperrik galduta. Baserritar onek uste ta gogo onagaz ez al dau bear egin? Arto onek ez al dau almenik, bein ongarria bota ezkero, gora ta gora egiteko, geroago ta berago egin bearrean? Bai. Gauza guzti oneik alan dira, baiña...

Gizonagaz bere bardin jazoten da. Gure gurasoak euren biotz guztiagaz emoten dauskue gorputza, ta zentzun apur bat daukagunean ongarria emoten dauskue, ta ongarri oneik izaten dira jakintza ta ezi-bideak.

Bein ongarri onek artzen doguzanean, bakotxak bere bideak jarraitzen doguz eta bakotxak bere eretxiak agertzera emoten asten gara eta lagun askori gauza au egoki ez jaken ezkero, eguzkiak artoagaz egiten daben lez, legortu egiten gaitue, baiña siketa au (esan bearrik ez dago) eguzkiarenaren antzekoa ez da, oraindiño askoz penagarriagoa da gutariko askorentzako batez bere.

Gizonak ez ete dauka ba almenik bere eretxiak agertzera emoteko ala ez gara jaio libreak izateko? Zer aurrerapide atarako dogu gizon gaztea zimelduaz, eta batez bere zimelketa au lau ormaren barruan egiten danean? Alderdi bateko nai besteko izan, gauza asko ta asko txarto dagozela ikusteko, naiko buru dogula uste dot. Eta ondo dago bide txarretik doana bere bidera ekartea, baiña ez orrelako zigorren bitartez, berbaz eta erakutsi onakaz baiño.

Onela ba zarrak ulertu gagiezela eta guk gazteak jarraitu daiguzan aurrera geure oinkadak «eguzki» orren bildur barik, eta geure aurka ixillean dabiltzen lagunei aurpegi ona ipiñi eta agur esanaz.

RIQUE TA MENICA'TAR JON

NUNDIK NORAKOA XII

BAKOITZAK BERE OPILLARI SU

Etorri ziran azkenean Gazteiz'era bizkaitar guztiak eta giputzak ere bai. Bizkaitar epel samarrak, ordurarteko beste bizkaitar erdeldunen gaitz-kutsua artuta, epelduta ta lelotuta. Giputzak, aldiz, ia guztiak euskaldunak, jatorrak, Saturraran'en lengo urteetan batera egondakoak. Euskalduntasuna gorde eben eta euskalzaletasuna ez gitxi. Antxe, umearoko urte areitan euskal irakasleak bai eukezan. Euskal abestiak, asko ta asko ekiezan buruz ta biotzez. Euskerea erabillen beti ezpanetan ta euren artu-emonetan, ingurukoei muzin egiñik. Jende modu zibilizatua, izan nunbait.

Bizkaitarrak, ostera, bilbaense makur oiekin otzituta ta utsa biurtuta. Itz ederrak eta egintza makalak. Guzurra erioela beti, barnebarnetik. Arabarrak zer esanik ez, bizkaitar ondatuekin alkar artuta euren lelokeriak nagusi jartzeko. Egia, ez ziran bizkaitarren artean danak etxe batekoak...

Bein batean, jolas aldian lau giputz ziran izketan aldra batean, ango bazter urrun batean. Beste talde batean, andik asago, bizkaitar batzuk eta iru arabar. Giputzen izketea entzun egiten genduan eta joan yaken arabar bat erderaz auxe esaten: «Itz egizue gazteleraz, arren». Abelardo eban arek izena, pilosopo ospetsuaren izena. Baiña, gizajoak, arengandik izena baiño ez eban gorde. Gatz bako mutilla, erdipurdikoa ikasketan eta oso eskasa gizarte-jardunetan.

Beste batean, askari-orduan, giputz bat etorri yakon lagunari pelotea emotera —frontoian ibilliak bai ziran— eta, jakiña, euskeraz esan eutson zerbait, emoterakoan. Ara beste arabar baten ateraldia erderaz: «Ea gazteleraz egin itz; ori eziketa onari uts egitea doketa». Ez naiz gogoratzen aren izenagaz; Puentelarra'koa zala bai. Ta bai ederki erantzun Segura'ko Etxebarria'tar Andoni'k: «Nere amaren izkuntzan ari nauk» ta kitu. Nik eskua ta sudurra ta mingaiña sartu ta adorea emon neutson giputz ari, bestearen aurka.

Kursokoak, batzar bat egin genduan gure arteko izparringi bat, aldaki batzuk danentzako, ateratzeko. Ta giputzak euskerazkoa nai eben. Bizkaitar andiki-usaiñekoak ez eben amor eman eta erdera utsean urten zan, gure ikastarako bizkaitar milizki ta mirrizkiak aterata. Ez genduan irakurten bat ere guk euskaldunok.

Ta orra, nere buruagaitik euskaldun esan dot. Oraingoan bai erakutsi ta irakatsi bear dautsuet zelan eta noiz asia nintzan euskerea ikasten. Ori, baiña, iruzkin andiagoa eskatzen dau-ta, urrengoan egertuko dautsuet, beste jakingarri batzuekin batera.

Bitartean, len esan doguna; Bakoitzak bere opillari su. Baiña, euskaldunak su gitxi izan arren, opil ederra eben, luzaro iraun dautsena. Beste iñozo areik, su ederra, txinpartaka ari zana biztu, bai, baiña opilla eskasa ta ondo oretu bakoa. Orregaitik gaur egunean gose ba'zarie, ez joan ogitan orreingana. Euskaldunak dituzue guztientzako jateko ederra dabenak.

Urrengorarte, bada, ta ausnartu a ondo zuen buruetan: «Obe da etxeko kea, auzoko sua baiño».

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra BILBAO - Casco Viejo Tendería, 15 eta 16

KONTU KONTARI

I.—USTEAK... USTEL?

Batzuetan bai; beti ez.

Alaxen dala ikusi dagizuen, izkirimiri bat edo beste kontauko dautsuet.

Or noa:

On Bonifacio Etxegaray euskaledeslari ospetsua, lotsa aundiko jaun agurgarria izan zana, urte batez, Sevilla'n izaten diran Aste Santuko jaietara joan ei zan lagun batégaz. Denda batean erosketaren bat egiten egozalarik, sartu omen ziran emakume bi, ederrak! apaiñak!, euren buruganeko orrazi aundietatik mantilla txukunak dindiliz eroezala, an oitura dan lez.

Gure On Bonifacio'kesan ei eutson lagunari:

—Oneik ez dituk Amezketarrak!

—Ez jauna; Albazizketa'koak gera —erantzun ei eben andereiñu biak bapatera.

Arri ta orma lotu ei ziran gure gizon biak. Euskalerriko mendi goi artakoak ez zirala izango uste ta... goragokoak izan!

Arritasunari yagokon alkarrizketa asi ei eben euskera gozoan eta alkarrekin joan gozotegi batera. Axe izan ei zan uste gabeko pozaldia!

* * *

Sarritan, usteak ustel ateratzen dirala, diño esakunak, eta alaxen da izan bere.

Orra geuri be, zer gertau yakun aldi luzea ez dala.

Edaritegi batean gengozan taldetxu bat, euskal-arazoetzaz jardunean. Onetan, sartu zan gizon bat; ez zan txatxarra, baiña surpulea (bibotea) aundiagoa eroian. Stalin'en antzera, goitik bera, okotzeraiño elduten yakozan, bi erpiñak.

Neu izan nintzan, ukaondoa sartu ebana:

—Nungoa ete dok au! —esan neban.

—Ni, tabiratarra. Ta... Tabira nun dagon ez ba'dakizu, Durango'koa naizela esango dautsut —erantzun eustan.

Axe izan zan azak emotea!

Nire lagunek, nire bizkar, barre algara aundia egin eben, ni abo bete agiñekaz utziaz. Tabiratarrak be irri egin eban, eta alkarri bostekoa emonaz, gaur arteko adiskide egin gintzazan.

Gizon au, nik uste izan nebana izan ba'litz, ez zan ezer txarrik gertauko, ez eban ezer ulertuko-ta. Eta ala bearrean, nik uste ez nebana izanda be, ez zan ezertxo jazo, danok euskaldun gintzazalako. Sarri entzun izan dot, euskeraz asarratzea zaillago dala; au, geure erri barruan danean. Erbestean euskaldun batekin topo egitean, anaitasuna, maitasuna, alkarreri biotza eskintzea izaten da, naiz eta gogai ezberdiñekoak izan.

Gaur be alan jazoten da erbestean gabiltzanean.

Aspaldion ostera, geure maitasun guztien erri barruan, zitaldurik gabiltz euskereari buruz. Batzuk diñoenez, euskal baitan, garbikeria ustel *dozu. Beste batzuen eretxiz, zikinkeria zintzo dozu.*

Eta bien bitartean emen gabiltza bata besteari bultzaka.

Lengo egun batez, arazo onetzaz jardunean gebiltzala, auxe esan eustan adiskide batek:

—Ustela, beti ustel. Jango al-uke sagar ustelik?

—Ez —erantzun neutson—. Baiña bai mizpira ustelak, askoz gozoago bai dituk.

Orregaitik-edo, lantxu onen asikeran esan dodanez, usteak ustel sarri, baiña beti, ez.

Asiko ete gara ba, euskaldunok, sagar zintzoak eta mizpira ustelak jaten, guzti-guztion probetxurako?

ABELETXE

ALKAR-IZKETAN

(X)

—Kaixo!, Manu. Opor-aldian izan azela entzun yoat eta uste yoat zenbait barri ekarriko dokala.

—Zarrak barri, Anton, ostantzean gauza andirik ez. Besteak baiño gitxiago ez izatearren, neu be oporketan izan nok, eta opor aldian be, buruak lan egiten yok-eta, gauza bat burururatu yatak.

—Ire buruak opor aldirik ez yok ezagutzen eta uste yoat, gaurko barriketaldirako zerbait garrantzitsu dana izango dokala. Esaik ba, pozik entzungo daustat eta.

—Auxe dok ba. Orain arteko gure yardun aldiak, Euskera, euskelzaletasuna ta gure izkuntzaren iraupenatzaz izan dozak, baiña beste zerbait be bearreko dala uste yoat: euskel oitura edo ekanduetzaz barriketaldi bat eukitea, orain arte euskera ta ekandu garbiak alkartuta ibilli dozakala ba-dakit-eta.

—Bai, alantxe izan dok; baiña, gaur, ikusten danez, alkartasun ori urratuaz yoak, eta orixe dok gauzarik tamalgarriena, ba-yakiguk ba, bata galtzen danean bestea galtzen dala.

—Ori be egia dok, baiña gauzak ain baltz ikusi bear diranik nik ez yoat uste. Beti be, gure txistu, abesti ta abar naiz ta «gitar» lagunduta, zabalduaz yoazak. Eta ori pozgarri dala uste yoat.

—Alan dok baiña, ez dok uste, sarritan, orreik amuzki lez ta lebatz inguruan ipinten yaben «perejil» antzera dirala? Ez dok ikusten, or zabal dabiltzan «yolas toki» izenagaz, gazteen sakelak ustu, biotzak nastu, oiturak ondatuteko beste «zer» ori (izenik ez yoat aitatu gura be baiña aituko dok) neuk ezagutzen yoadazan baserritar gazteetaraiño be eldu dala. Olan yarraitu ezkero, gure Euskereagaz nora goazak?

—Neuk be zerbait entzun yoat. Errien etorkizuna gazteen eskuetan yagok, eta euren zintzotasuna zaintzen ezpayoguk, gureak egin yok. Eta olango «yolasen» zabalkundea, izparringi ta erri-irratietan be **egiteari, zer deritxok?**

—Oso txarto, eta ni ez nok bakarrik. Nonbaiten irakurri yoat ba, erri baten, baserrian gazteai oin oitzen doan «itaunketa» bat egin yautsiela ta batek izan ezik, danak txarto ereisten eutsela, erri-irrati batek olango iragarkiak zabaltzeari. Baiña ba-kik diruak indar andia yaukoala.

—Onak gaozak, egia, zintzotasuna, ekandu garbi ta zuzentasunaren alde yokatu bear yoenak, dirua lenengo ipinten ba'yabek!

—Gaurko gaztediak, ainbeste arerion artean, burua argi, biotza garbi eta asmoak zuzen euki bear yozak.

—Eta orretan gurasoak izan bear lleukiek lenenak euren seme-alabak euskeldun zintzo ta ekandu garbietakoak izan daitezan.

—Gurasoak diñok? Tamalez beterik ikusiko dozak, seme-alabakaz gauza onik ezin dabela-ta. Agintariekandik dana itxaron. Ori amesetan ibiltea izango litzakek, gura ta be, gurasoen laguntza barik ezingo lleukiek gauza andirik egin-eta.

—Dana dala, praille usañik euki ez yoan beiñolako Thomas Mann'ek auxe idatzi yoan: «Etorkizuna erri garbiena izango da».

—Ori egi andia dok eta gogoan artzekoa.

—Gaurko naiko izango dok eta agur, mutil.

Agur eta ondo ibilli!

URIGOITIA

TXORI BATEN GOGOETAK

(Jarraipena) Agiñalde'tik.

Umeak erriko ikastaroa amaitu ala, aldamenetako lantegietan lanean asi ziran. Olan ba, Yoseba'ri garaia eldu yakon noizbait, eta egun zoriontsu batean, yaieguneko yantzia erabillela, Gernika alderantz abiatu zan. Andere'k berebilleraiño lagundu eutson, eta azkenengo unean, pardel bat emon eutson iñotsola:

—Ona emen aita zanaren otzarakintzarako erabillazan tresnak. Zureak dira orain, seme. Ona izan zaitez eta ez aaztu gau orotan otoitz egiten.

Etxera itzultzen zala, aurrerantzean semeek eurentzako lain irabaziko ebela, Andere'k ausnartzen eban, eta berarentzat bakarrik ez zan diru askoren bearrik. Astean egun gitxi batzuk lan egiñaz, naikoa litzaioke etxea ondo erabiltzeko, ta gogoa pake bakan batez beterik, biotzetik ezpaiñetara otoitz bat sortu yakon.

Yoseba'ren ikasgoak urte bi inguru iraungo leukiez, eta illero amari ikerraldi bat egin oi eutson. Ua zan benetan yaieguna Andere'ntzat! Semea ikusten eban bakoitzean, nabari zan soiñez gizona egiten ba'zan, aita zanaren gero ta bardiñagoa biurtzen zala. Aldakuntza onekin batera, semearen gan barrutik ixurtzen yakon beste aldaketa bat oartzen eban, gogoari zegokiona alegia. Andere'k ez ekian zein izan leiteken zioa, baiñan bere semea gero ta arrotzago ikusten ebanez, larritzen asi zan. Azkenik egun batean zergaitia yakin eban.

Irailla'ko arratsalde eguzkitsua zan. Aste gitxiren buruan, Yoseba'k ikasgoa amaituko leuke, ta oldozkun onek Andere'n biotza zorionez betetzen eban. Alako batean, abots dardartsuaz Yoseba'k esan eutson:

—Ama, tamala ba'yat ere, yakiñaren gaiñean ipiñi bear dautzut... otzaragintzak ez nau erakartzen. Asieran gogokoa izan yatan, gero... nik ez nekian zer zan, baiñan beste gauza bat irrikan nengoan. Noizbait, azkenengo asteotan dana argi ikusi dot, ama... abade izan gura dot...

Andere arrituta bezela geratu zan, eta gero mai-gaiñean ezarriak zituan besoen artean aurpegia ezkutatuaz, negar ixil bateri emon eutson.

—Ez negarrik egin ama... ba'zeneki zein yasangaitza yatan zu olan negarrez ikustea...!

—Baiña seme... neure malkoak ez dira naigabeak eragindakoak...! Ez Yoseba, zorion utsaz ixurtzen dodaz... Ni abade baten ama...!

Gau artan oatzean zetzala, Andere'ri ez yakon bururatu zein gogorra barriz bere, bizitza billakatuko litzaioken bere semea mintegian eusteko. Bein eta barriz otoitzean ari zan Yauna'ri eskerrak emoten, seme kutuna bere zerbitzurako aukeratua izan zalako. Eta Gernika'rako bidetik yoiala, Yoseba'k bere amaren aunditasuna iñoizkorik argien ikusi eban.

Andik laister, Yoseba mintegian onartua izan zan, eta zegokion ikasketari buru-belarri emon eutson. Bere anaiek lan-sariak osorik etxera ekarrezan, baiñan ozta-ozta euren buruak eusteko lain zan. Andere beraz, seme kutunak sortutako eralguntzari aurre egiteko, beartua izan zan lanari iñoiz baiño kementsuen ekitea, ta olan azkenengo urteetan izaniko erdi atsedena amaitu zan, eta barriz aintziñako gerriko min zorrotza etorri yakon, alabiñan ordurarte gogoan iñoiz ez izandako zorion aundi batek, soiñaren aultasunak ezerezten eutsozan.

Zenbait urte igarorik, anaiak ezkontzen asi ziran, eta azkenean Yoseba'ri apaizteko garaia eldu yakon. Mezakotzeko bezpera elduta, dana gerturik egoan urrengo egunean abade gaztearen leenengo meza ospatzeko. Gau artan, etxeko sukaldean Yoseba ta bere ama, biok bakarrik, izketaldi paketsu bateri emoten eutsoen. Alako batean, Yoseba'ri urte batzuk leenago gertaturikoa burura etorri yakon, amari esan eutsoenean abade izan nai ebala... baiñan zelako aldakuntza ordutik ona... Yoseba'k bere aurrean esku gorrizka itsusietako atso zimel bat ekusan. Soiña gerritik lurrerantz okertuta, aurpegia neke-keiñu batez illundurik... Eta orduan negar-zotin bat bularbarruan sortu yakon eta malkoak amaren aurrean estaltzearren, balkoira urten zan eta an izarrak lekuko bakarrak zituela, negar ixil bateri emon eutson.

(Jarraitzeko) AGIÑALDE'KO TXEPETXA

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

KIROLAK

BASKONIA KIROL BAZKUNA

Aurreko idaz-lantxo baten esaten gendunez, ba-litzakela urrengo baten Baskonia Mendigoizale Bazkuna'tzaz zerbait idaztea. Ona emen gaur esandakoa beteten irakurleen atsegiñerako izango dalakoan.

1913'gnean Baskonia Kirol Bazkun au sortu zan, ta bere magalpean mendigozale taldea, beraz, Euskalerri'ko zarrenetarikoa da. Gurean izan gendun gudaketa zitalean eta orren ondoren ia ezetuta geratu zan, baiña zorionez, 1940'gn inguruan mendi-kirolak barriz asi ziran bazkun onen barrenean.

1963'gnean, bazkun au sortu zanetik berrogetamar urte beteten zirala, urrezko-eztaiak ba'lira, Gorbea'ko gurutzearen azpian Begoña'ko Ama Neskutsa'ren irudia ipiñi eben, eta arrezkero, urtero joaten dira araiño Basauri'ko mendigoizale geienak, emendik ara oiñez, ta an, beste mendigoizaleakaz meza ederra entzun.

Gorbea'ren aldamenean, Zeanuri aldera, Yondakorta izenagaz ezagutzen dan alderdi alaian —beratxoegi bear ba'da— aterpe eder bat dauko bazkun onek. Berrogeiren bat oe daukaz, bertan nai daben bazkide guztiak nasai egon leitekez; ain da ederra toki egoki a!

Aurten —baita beste urteetan be— urterarik asko egin dabe, ta kirol onetako beste eginkizun ederrik be bai, baiña aipagarriena Auñamendietara egin dabena da, zalantza barik, ta garrantzitsuena, Tobakor, Perdido ta Custodia iru milla neurkin gora dabezan aitz erpiñetara ogetamarretik gora mendi-zale batera joan dirana.



Basauri'tik Auñamendietako Tobakor'era.

Beste ekintza goralgarriak be egiñak ditue kirol garbi onetan, baiña lantxo au luzeegi ez egitearren, urrengo baten azalduko doguz beste batzuk.

Lenago be esaten gendun, Bazkun onetakoak areto zabal bat erosi dabe Doctor Fleming txaidean, 2'gn zenbakian, ta or, eurentzat batzoki eder bat egiteko asmoan, bazkide guztien onerako, bazkide mordo batek diarduan langintza ikusgarria da, ta euren lanetik azke daukezan orduetan bear diran eginbearrak beteten. Ez dago esan bearrik, egintza guzti onen ondoren egin dituen txindi ordainketakatik, euron kutxea pizkat ustuta geratu da, baiña uste dabenez, laster, bazkide guztien laguntasunez, amaitu al-izango dabe bear-bearrezkoa dan batzartoki ederra, ta orduan bazkide barrien laguntasuna lortuko dabe. Gero, aurrera begira, kirol eta jakintza bideetan indartsuago asteko, ta ekintza onein bitartez, gure gazteen barrenean urduritasuna ta erri-miña sortu, bear-bearrezkoak ditugu-ta.

KOLDO

TXAPELKETAK

Egunotan ludi, erki edo erri txapelketak ugarituaz doaz egitan. Guztiokaz laburkiro ba'da be mintzatzera noatzue. Gure Bizkaia'n izan doguz onetako txapelketa barregarri batzuk. Bata, Lexona'ko Udaletxeak eratuta. Emen sari bat egoan buruaundienarentzat. Ba-dakiguz —ikasketetan diarduenenak onartu bage— kui kalabaza aiñakoak or-emen idoro leitekezala, baiña, lotzaz-edo ez ziran danak buru neurketa ontan agertu. Irabazi ebana ta orain egiz ospatua J. M. Olivares gaztea izan zan. Madrill'etik urrutikuskiñerako deitu dabe, ba'da ez ba'dan Madril aldetik burua zaindu bearra dozu Joseba!

Ta zer esan Pablo Garcia'taz, bere sasoi-sasoiko 18 urteekaz Getxo'n gazteen arteko eder-lerdentasunean Bizkai'ko lenengo saria berenganatu dauan onetzaz? Oni bere eskeiñi dautsoe Madrill'erako osteratxoa, an argizaiko Museoan bere irudia sekula-sekulako gorde-azoteko.

Irugarrenak be, ez ei dago irubako birik, ezin leikean uts egin, ta or dogu «Drakula» bera baiño motsagoa arpegiz, biurtuaz Bizkai'ko gizon itxusiena, bera be telebistan ikusi genduna.

Orain, bestalde ta olgetak alde batera, bosteko biak baturik txalotu daigun SVAC'ek deituta Bilbo'ratu iakun Merckx ludi guztiko txirrinkol txapelduna. Egun bi emon ditu gure artean, ta bere bakuntasunez oztetzaren biotz-zaletasunak bereganatu. Baita ere lenengo egunean Txurdinaga'ko lasterketan maixukiro irabazi, gure Galdos ebala lagun. Bigarren egunekoa Ocaña'rentzat izan zan. Baiña ori ta be guztien aburuz Merckx'en ondoan Ocaña beti... bigarren.

Oñati'n be ludi-osoko «Artzain-txakurren XII txapelketea» izan dogu. Euskaldunak geien bat, Katalandar bat, Prantzi aldeko bat eta Doistar bat ere euren artean batu ziran. Bizkaia, Eyurreta'ko Jaio'tar Errupin'en txakurra zala bitarte, txapeldun jarri zan; txakur garaille onen izena «Txakur» da. Bigarren tokia Araba'ko Zubizarreta'tar Kepa M'ren txakurrarentzat izan zan, ta onen izena «Turko». Gazteiz'ko neurketan aste batzuk lenago au garaille ikusi neban. Irugarren saria be bizkaitarrak eroan eben, baita bostgarrena be, laugarrena katalandarrantzat geratu zan. Artzain-txakur leiaketa au Eyurretako jai aurregunetan izan danez, errian jai bereziak, jabearen eta bere txakurraren omenaldiz ospatu dabez.

Idaz lantxo au argitaratu orduko, gure auspo-soiñulariak Polan (yugoslabian) zer egin daben jakingo da. Beste ludi-agiri bat ba'dakarskue (ekarri), poztuko giñakez benetan. Ereslariak ez eze erkide guztiak ere txalotutzeko gerturik gagoz atan be. AGUR bitarteko, aldi onak gogo beroenekaz opa dautsueguz.

ARREGI'TAR JOSU

URRESTITARREN EZTEGUARI

Buru biotza ditun lagunak
bizi legea daroa,
berezko danez uka eziña,
maitez ezarritakoa;
bizi barri bat artu dozue
barru-indarrak eraginda,
adizkide bi senar-emazte
gaur goizez biurtu dira:

«Guraso maitei agur laztan bat
iñoz ez urrunduteko,
zuen bizia zabaltzen goaz
euskal-erriari eusteko,
Jainkoak Berak sortu ginduzan
indartsu bizi izateko,
poz orren bidez biziko gara
gure lur ontan maitero».

«Alkartasuna bearrezko da
bizitzaren erraietan,
gu biok be gaur alkartu gara
giza legearen eran,
gure baietza Jainkoak Berak
goi indarrez lotukeran,
urrezko kateiz ta goi eskarrez
bizi gaitezan lurrean».

«Senide maite ta aizkide onak,
au da pozaren zoria,
gure gogoan gaurkoz egitan,
barruz, asmetan doguna,
gure asaba ta erriari
zor dautsagun poztasuna,
guretzat beti, izan bekigu
bizitzako maitasuna».

«Jaungoikoaren erri maitea
osotu gura genduke,
zuzentasuna ta egiagaz
alkarrezko maitez maite,
onberatasun egiazkoaz
zoriontsu izan giñaike
euskal-erriko aide ta aizkide
gurasoak eta seme».

Azken abesti ezilkorren bat
esan nai neuke zuentzat,
gora eskontza, gora bizia,
geure euskal-erriarentzat,
guztiok, orain, lana egiñik
geure erri maitearentzat,
gero, guztiok izan gaitezan
geure Jaungoikoarentzat.

PAULIN

BA AL DIRA OVNI ORREIK?

Gu umeak giñanean munduaren azkenagaz noiznai istilluak izaten ziran. Olako izarra buztana atzetik ebala ikusten zala edo olako beste zerbait goietan ikusten zala ta orrek munduaren azkena iragarten ebala. Ta naikua zer esan izaten zan.

Gaur olako ipuiñik ez dago; baiña ipuiñik ez da falta. Bear ba'da len baiño geiago dabil gure egunotan. Ta euretariko bat lenengoan «egazko platilloak» izenez deitzen asi giñan eta gaur «ovni» izen barria sortu eragin daben orreik dira; beste mundutik etorten dirala askok diñoen traste orreik.

Ez da gitxi idatzi ta itz egin gauza onetzaz. Millakak dira «ovni» orreik ikusi dituela esan dabenak. Jakiña, geienetan emendik urrun ikusi izan ditue. Ego Ameriketan da. Ta guk urruneko jazoerak ez doguz aintzat artzen arako esaera zarra buruan dogulako edo: «Urruneko intxaurrak amabost, urreratulakoan bost ta eurak ozta-ozt».

Baiña urreago be ikusi izan ditue, Españia'n be bai. Guk baiño begi argiagoak izan kontixu!

Aurten baten telebisioan gai onetzaz gizon birek jardun eben. Ez ziran edozein; eskolauak zirudien. «Ovni» kontuan jakintsuak zirala esan bear. Biak itsuitsuan siñisten dabe beste mundutatik etorten dirala esan oi dan tresna orrekaz. Beno, itsu-itsuan ez, olan egitea orretarako errazoi barik siñistea litzake-ta. Dirudianez jaun bi orreik errazoi ugari ikusten dabe. Arazoa barru-barrutik sentiduten dabe, buru-belarri bertara jarri dira. Liburuak idatzi, izparringietan be bai, itzaldiak emon. Gizadia zerura bidean ipiñi nai daben elizgizona bere baizen gogotsu; langille ta beartsuon munduko bizitza erosotu nai daben sozialista jatorra lez diardue artu daben egitekoan. Ori be ezta arritzekoa.

«Ovni» kontua ala be orrenbeste arduragaz artzekoa danik ez dot uste. Niri neuri «ovni» orreik ez dauste lorik galdu eragingo. Ba —dirala? Ez dirala? Bardin jat batera nai bestera izan. Ni ez noa orretzaz idatzi dan libururik erostera ta emango ba'leuste be ziur ez neuke irakurriko, tebeo, nobela ta olakoen irakurlea sekula ez naz izan-da. Baiña telebisiñoan euki eben jardunean jaun orreik euren errazoiak emon ba'lebez naiago neban. Itza ta pitza naikua egin eben baiña errazoi txikienik be ez eben azaldu-ta. Orduan, bear ba'da, arazo onetan dodan eretxia aldatu egingo neban.

Nire eretxia zer dan? Balio gitxi daben nire errazoia auxe da: Ezetz; beste mundukorik onera ez dala agertu.

Ez diñok beste mundutan bizidunik ez danik edo ezin izan litekenik. Arrigarria izango litzake milloe ta milloe mundu izan eta gure onetan bakarrik izatea. (Beno, zer ez da arrigarria izadian? Beste askoren artean arrigarria benetan gure mundu onetako millaka asko mota bizidunen artean gizona bakarrik buru argikoa izatea. Gizona ez izatera mundua sasitegia besterik ez zan izango).

Bai, izango dira kontixu bizidunak diran beste mundu geiago; ta emendik illargira joaten asi diran lez beste mundu orreitatik batera bestera dabizenak. Baiña iñok ez gaitu ikertu. Batzuk esaten daben lez «ovni» edo danadalako traste orreik agertzen dirana, egia ba'da, ta gure gaiñean nai daben lez ibilli ta gero tximista lez aldendu, mundu onetakoak baiño askotaz aurreratuago dagoz. Ta orren aurreratuak ba'dagoz, emen beso zabalik artuak izango litzakezana jakin egin bear leukee. Beste orreik mundu onek arduratzen ba'ditu, ukatu eziña izango litzaken zerbait agergarri zergaitik ez dabe lagaten, gezna edo mensajeren bat zergaitik bialdu ez?

KAMIÑAZPI



EUSKAL HIT PARADE


Doiñu sail onetan opor-alditxoa egin ondoren, emen gara barriz entzun-bearrak entzuten eta aldaketa ta barrizteak neurtzen. Ta ara egi-egia, zerbait susmatzen ba'gendun susmatu, ez gendun uste izan onenbestekorik.

Itxuraz, euskal-entzumenak bere bidea aurkitu al izan dau, ez dogu ba sen eder ori aldizka aldatu daikeguna, ezta egun batetik bestera aldatzekoa be. Gure erriaren «belarriak» bere-bereak entzun dituanean, zuzen joan da orren billa, ta ondorena, lengo, odoleko, eresiak edo eresi ganorak nagusitu dirala. Ta «Biotz-Alaik» eta Donostia'ko Abesbatzak, or dakarrez indartsu euren biribillak. Ona emen Ares jaunak jakin eragin dauskun azkenengo neurketearen jakingarrienak:

Lenengo ta bigarren «Neguko txilliñak» eta «Itxasoko errege» «Biotz-Alai» koenak, zazpigarren «Festara» Donostia'koak indar barriakin dakarren abes txorta au, ta lenengo biok sorkalde doiñuak ba'dira be, euskal usain aundikoak dira, ta beste euskal abesti ederren artean datozela, geure-geure dirudie, beste barrikeri askok baiño geiago. Ta doiñua doiñua danean eta ez zaratea or etorten da gora erriarren aukeran. Ori guztiori olan dala, ara baiña ziñestu izen aiñakoa: zein da Luis Mariano'ren «Ezin Aztu» ori or datorkigu barriz gazte eta indartsu, gora ta gora, aztuteko bidean joiala uste gendun garaian bertan; laugarren agertu jaku, beste izen aundikoen aurretik.

Danorrek eraginda-edo, Ares berak be auxe diñosku: «Bereizgarririk nabarmenena, abesti barrien atzera-bear izugarria izan da, ta lenagoko abestiei leku aundia itzi bearra; lenagoko jokereari, «camp» orrengandik be aruntz».

Orra ba, BIOTZ-ALAI'k erriaren «belarri» ori aurkitu dau ta arrera aundienetakoa lortu. Pelai Orozko'ren azken idazti barri onek aiñakoa esango neuke nik. Biribil ori eskuratzen dozunean zeuk be orrenbeste esango dozu. Ta bukatzeko, abesbatz au ezagutzen ez ba'dozu be, ara bere biribil orren azalean arnas-estuka irakurri al izan dogun zati bat; bere ezaugarri. Bai, azaletik artu dogun onetan «haspirante» batzuk kendu egin doguz, ez baiña orri larregi begiratu; mamiña, benetako entzungarriak biribillean dagoz, an bai dirala ederrak doiñua, euskerea ta abestea:



BIOTZ-ALAI ABESBATZA. 1926'gn urtean sortua izan ba'zan be, talde onen benetako jaiotzea 1966'gnean kokatu daikegu. Aldi onetan, gaur zuzendari daben Gaintza'tar Juan Jose'k (sortzaillearen semeak) antxiñako abesbatz a osotzen ebenak barriz alkatu ebazan; lenagoko zaletasunari eusten jakin ebenok ara barriz indarbarrituta.

Ogetamarren bat abots-lodiz osotuta, BIOTZ-ALAI zarra berbiztu zan, ta gerta-aldi eraginkor baten lotu ondoren, Bizkaia'n ospatu ziran jaialdi geienetan agertu zan. 1969'gnean Tolosa'ko Abesbatzen Esukal-Abesti Lenengo leiaketan izan zan, ta abots-lodien maillan lenengo saria lortu; bere gora-bearraren erakusgarri izan gendun.

GAINTZA'TAR JUAN JOSE'k, aita ereslari baten seme onek, aurtzarotik ekarran errietarako joerea, ta «konserbatorio» izeneko Bizkaia'ko eres-ikastetxean lortu ebazan aipapenak, bere zaletasun eta eresgintzarako aukera berezia agertu dausku.

«BIOTZ-ALAI»an barrizte onetatik datorkion aurrera eginbearraren egiñez, abesbatz zuzendarien artean gorengo maillan agertzen jaku».

Ta besterik ez, naikoa da-ta.

ASTI'TAR PERNANDA

E T O I A

Ludian iguingarririk ezer ba'dago etoia-traidorea da. Laterri guztietan, onein aurka diran legeak zorrotzenak izaten dira. Ala ta bere, laterri geienetan eragilten dan txindi mordoa, beste laterrien barruan orrelako etoiak eukiteko izaten da.

Zertatik sortuten dira etoi oiek, norberekeriak bultzatuta ezik? Ta, nola billatu daike bakerik, bakoitzak berea indartzeko orretan ainbeste diru ondatzen ba'da? Ez ete da ba norberekeria ludi guztiek gauza gaizto bat bezela ikusten duna? Ta, zergaitik banaka batzuk, beste gizaseme erdi ergel erdi ausartsu orreitan, norberekeri ori biztuten alegintzen dira? Gero, euren menpean betiko lotu, ta erriaren aurrean buru-garbi ta esku-zabal agertzeko ezik?

Ikusi dezute iñoiz jakitunik bere buruzalekerian lotuta izan danik? Emen ondo dator esaera a: «Gizona gariaren antzekoa ei-da; zenbat eta buru ederragoa, ta anibat makurragoa... edo nai ba'dozu bestera... arroago, buru arin zutiña.

Ez da arro, txindi-zale ta jauntxu izan naia, jakiñ-gureakin goze izategaz nastu bear. Oneik, guztientzat, iñoiz amestu ezin besteko aurrerapenak dakartez, naizta gero esku txarretara joan.

Gau ta egun lanean, beste amesik gabe; gogotan dituan azalgaiak, len-bailen, ludiari ezagutzen ematea nai du. Orregaitik ez ditugu bata besteakin nastu bear.

Sortzetik ara, aurtzaro barrenetik, zergaitik ez jake gazteeri gogor azaltzen norberekeriaren gaxo gaizkin ori zer dan? Alperrik izango dira geroko neurri guztiak bestenganako maitasunik ez dun gizartean! Gizona, indarrez eta zigorrez, ezi-izundu baiño ez da egiten.

Ludiak gentza nai ba'du iritxi; aldaketa aundia bear du eman. Edo bestelaz batzuk esaten dutena izango da: «Gudak ekarten ditu aurrerapen ta gaurkotasun guztiak», baiña ni ez nago orrekin, beste alde batetik ikusten dodalako.


Gudako estualdietan, eta irabazteko asmoan, zergaitiari begitu gabe, naiz batzuk ta naiz besteak, laterri, txindietxe ta urre-zekorraren dirua eskuartean darabillenak, jakitunari eskeintzen dautse ta eskubide guztiak emon... Ta nire ustez, danok etoi egitea da ori. Aldi orretan izan ezik, ez ei du etorririk izaten-eta, ez diote jakitunari bake-ekintzarako txindi askorik emango.

EGILLETA

ITZ-EUNDUAK

(XVII)

Etxebarria'tar Juan Anjel



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Garai.—B: Entzuneziña.—D: Zelai egin.—E: Bizia kendu (a. a.); Konsonante; Konsonante; Leku orretan (a. a.).—G: Lelotzar (a. a.); Urte-sasoia.—I: Giro; Su-miia.—J: Urruti; Abizena (a. a.).—K: Atzizkia (a. a.); Bokal; Konsonante; Omen.—L: Abizena.—M: Toki menditsu basatia.—N: Oarpen (a. a.).

GOITIK BERA.—1: Zenbakia.—2: Zerrenda.—3: Zigorrez artu.—4: Izki; Konsonante; Bokal; Konsonanteak.—5: Solo-tresna; Ekarten nau.—6: Aldi (a. a.); Lantoki.—7: Uruna (G.); Ari txiki.—8: Kanpo; Konsonante; Konsonante; zeu (ika).—9: Abizena.—10: Gipuzkoa'ko erria.—11: Are.

XVI'aren agerpenak:

Zearretara = Goi.—Morga.—Arrieta.—oD; R; R; Ño.—Usiki; iñipI.—Len; Kar.—Urten; Apari.—As; A; B; rO.—Urkiola.—Karla.—reL.

Goitik bera = Ulu.—oserA.—Adintsu.—Mr; K;E; RK.—Gorri; Nakar.—Ori; irE.—Igeri; abolL.—At; Ñ; P; La.—añikarA.—Oparo.—Iri.

MIGEL PELAY OROZKO'K **eta** LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'K **eskeintzen dautsue idazti barri au «LA ENCRUCIJADA», ta gaur Euskalerrietan dabillen giroaren azterrenak nai ba'dozuz ezagutu, euskeraz eta erderaz datorran idazti au irakurri bearko dozu. Ona emen «best seller» orreitako bat.**



Donostia

AGUR JOXE!

Udazken itunak, mendi, zuaitz, kale ta itxasoa, bat batean, urreztatu ditu. Kaia, gure Donosti'ko kai zarra, gauza bizi-bizia, ixil-ixillik dago.

Gure Bizia, ez al da koldarra sarritan? Ontzi geienak —atsekabez ez lertzeko— agun aundia galduta noski, itxasora joan dira, bidatz zuri-zuria beren atzean utziaz.

Gure Artetxe onak utzi duna ez da ez margulagoa!

Ur berde, urdin, gorritsua, usai gozoz betea —nun sartu ote dira gure arrai polit jostalariak?— bare-bare ta motel arkitzen da.

Emen beian, etxe garbi apaiñak, margotu berriak. An goian, Urgull aldean, orma aguretsuak, ta zuaitz ugariak, erdoi ta urrez apainduak.

Giro ederra dago, gorri-gorria, ta ala ere gu naigabetuak gaude: Artetxe ain gazte, ain ixil, ain bakarrik il zaigulako!

Zer egingo degu! Gizon umil ta biotz onekoak orrelaxe iltzen dira! Nolako bizitza, alako eriotza!

Gure Joxe oso itxas zalea zan, ta orregatik iñoiz itzuliko ez dan ontzi txuri ederrean beti-betirako joan zaigu, azi bikaiña utziaz!

Agur Joxe, euskaldun jatorra, gizon zintzoa, sarri arte!

Ta, txar denak barkatu!

MATXIN

Arrasate

«LORAMENDI» REN OMENEZ

Iragarrita zan bezela irailleko 19'tik 26'ra bitartean egin ziran gure auzoko euskal-erri dan Aretxabaleta'n. Aste barruan beste jai-aldi batzuen artean egin zun itzaldi mamintsu eta jakingarria Iurre'tar Yulen Aba Buruiñurdunak. Ozte aundia batu zan berari entzuten eta pozik gaiñera. Igandean berriz, lendik iragarrita ziran bezela, biribilketa eta abarren ostean batu zan jendetza polita «Loramendi» ren izenean zabaldu dan emparatzan. Bertan euskalmeza ederra ospatu zan meza emaille izanik erriko seme Zubizarreta'tar Paul. Meza ostean egin zan «Loramendi» ri omenaldia, enparantza ortan iragi dan oroigaillua onestuaz. Onespen au egin zuan erri ontako parroko dan Garmendia'tar Gotzon'ek. Aurretik erriko alkate-orde dan Uribelsago jaunak kendu zuan zapia ager-egiñik oroigailluan dagon irudia. Oraigaillu au lendabizi Bedeña auzoan ipiñi izan zan 1935'gn urtean, baiña guda zitala zala-ta eskutuan egon bear izan du bere lekutik kendula. Orain, esan bezela, puxkat konponduta, arri au berau izan da emparantza ortan jarria.

Jai guztia ondo eratua izan da Aretxabaleta'ko «ALKAR» alkarteak eta berorregaitik eskerrak eman bearrean gara euroi. Bukatu dezagun «Loramendi» ren olerki onegaz:

Agur, Euskal-erria,
Zugandik ba noa,
maite bazaitut oro,
maitago Yainkoa.

EREDU EDER BAT

Emen ba-da alargun bat artu bear doguna eredutzat euskera maite dagun guztiok. Beronek bere seme eta alaba guztiei euskeraz erakutsiaz naiko eztuala, bere erraiña be euskaldun egin du (euskera dun), naiz eta errain onek jaiotzetik erdera besterik entzun ez. Ori naiko ez-dala etxean daukan neskamea ere beste orrenbeste izanez, edo-ta, bestea bezin erdeldun izanez orain euskalduna da. Zorionak Joxepa.

Aor gure euskaldun gurasoentzako eredu ederra. Nik betik esan oi-dut gaur egun lenengo ikastola etxea dala ta gero ikastola. Jarrai ba emakume euskaldunak zuen umeei euskeraz erakusten.

Ikastolak. *Asiera eman zaiote ikastaraoei eta batez ere ikas loei dagozkionez beste areto bat zabaldu egin bear izan da.*

Aretoa orain gutxi arte San Viator ikastetxea izan duten leku berean. Ikastetxe au 1935'gn urtean egiña da orduko Udalaetxeak ordainduaz. Oraingo Udalaetxeak ederto laguntzen dio ikastolari eta beragaitik eskerrak eman bearrean gara.

Aurren saiketa. *Asi dira gertatzen aur talde bat, gero Gabon inguruan izango dan Jai-aldi aundirako. Jai onetan parte artuko dute Lenitz ballarako ikasle guztiak eta bertan erabilliko diran gaiak auxek dira: Abestiak bakarrik edo taldeka; ipuiak, irakur saioa, abar eta abar. Dana izan bear du euskeraz. Orain urte bi izan zan jai ortarakoa lenengo. Igaz ezin egin izan zan Burgos'ko Epaia zala-ta. Jai onen eratzailleak «DANOK» emengo alkartea izango da.*

UDALAITZ

Ibaizabal aldetik

MENDIRIK MENDI

Orain amasei urte, 1955'ngo Urrillaren 30'gnean, azkundea izan eban Betsaide'ko mendi-lepo gaintxoan, Anboto ta Udalaitz erpiñak ikusle ditula, Arrasate, Aramayona, Arrazola ta Elorrio'ren artean, au da: Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa mugatuten diran mendi gaillurtxoan, mendietan ildako mendigoizaleen gomutagarri dan oroigaillu eder batek, beste beralako bat eztagona, ta bilbotar Sopeña'tar Gotzon, Mendizale Batza'ko lendakari zala ta bere bitartez.

Aldi artatik aurrera, urtero, Irailleko irugarren igandean, an bertan ospatuten da jaupa bat, mendian ildako guztien gogoen alde, ta ori dala-ta, alderdi argi baketsu artan Euskalerriko mendigoizale urtenenak bilduten dira, alkar agurtuaz gure artetik alde egindakoak goralduteko, ta ez gitxi batzuk, aneika asko baiño.

Mendigoizale purrukatuak izanik, gu be, jakiña, sarritan izaten gara an, atsegin yakulako antziñako adizideak agurtu edo besarkatuaz, ezagun geduazan ainbaten omenez otoitz bat egitea.

Ori dala bide, aurtengo oztetza bertaratu izan danik aundiena izan dala esan daikegu. Ba-dira sei anei inguru izan zirala diñoenak. Gu ez gara orrenbeste izan diranik esaten ausartzen, ango lerdoidietan egoan asko ezin zalako zenbatu, baiña geien batu dan eguna izan dala bai ziur. Eta guretzat pozgarririk andiena, geiena gaztedia zala ikustea; mendirako joerea darabillan gaztedia dalako, gure ustez gaurko gaztedi zindoena, geiena beintzat.

BEDIA

Ez dagoz geldi Bedia'ko gazte euskaltzaleak, ez orixe! Ta pozgarria da, geldirik dagon gazteegaz ez dagolako gauza onen itxaropenik. Gazteak zirt edo zart zerbait egin bear dau, ta eusko gaztea, gure giroko jolas, erri-jakintza ta arlo guztietan ba'dabil, ainbat obeto, orretatik ikusten dalako orrein erri-zaletasuna ta bear-bearrezko dogun azkatasun egarria.

Leenago be zerbait baiño geiago egiñak dira bediatar gazteak euskera arloan, dantzaketa arazoetan, eusko giroko jolas eta kiroletan, ta ez dira oraindik aspertu, ta gogotsu diardue jantza azkatuak ikasten neskamutillen talde andi baten batuta, Bilbao'tar Josu gazte jatorra irakasle dabela. Baita mendi-zale gaztetxu talde bat gertatuten be, igandero lurralde, baso, mendi ta baster ikusgarriak ta jakingarriak ezagutuaz errimaitasuna eurenganatuten. Bediatar gaztediaren jokabideak benetan poztuten gaitu. Aurrera mutillak!



GALDAKANO

Iraillaren 14'gnean Bengoetxe'ko txadonatxoan, Jugo ta Apellaniz'tar Endika, ta Albarez eta Arbe'tar Miren-Agurtzane gazte euskeltzaleen ezkontza ospatu zan. Ori dala-ta, an batu ziran Jugo, Apellaniz, Albarez ta Arbe sendiak, eta bertara deituak. Gure zorionak AGUR'en irakurle zintzo orrei ta euron senide guztioi.

Amaitu dira Iraillaren 11'gnean asi ta il orren 26'rarte izan doguzan jai nagusiak, Gurutze Deuna'ren Gorakundea, erriko Goijabole dala-ta, urtero ospatuten diran jaiak. Ez dago esan bearrik betiko antzerakoak izan dirala; zorionez orrein artean izan doguz eusko kutsuzko batzuk be, asko izan ez ba'dira be. «Andra Mari» gure dantza taldearen dantzaketa ederrak, arri-jasotzailleak, aizkolariak, dantza azkatu leiaketak eta abar. Esan dogunez, eusko-katsudunak baiño bestetarikoak geiago izan dira, baiña alai ta baketsu igaro dira. Ea aste ontan asten diran euskelastekoak atsegintsuagoak izaten yakuzan galdakanotar euskeltzaleoi, urrengo urterako itxaropen geiagogaz jarraitzeko.

Igaro dan Dagonillean, Gaguren Mendigoizale'ko iru mendizale kementsu, Telleria'tar J-M, Iraztortza'tar J. eta Ruiz'tar J., Europa'ko Erpiñetara, «Picos de Europa» orreitara joan ziran, ta, jakiña, an ziranezketiño Bulnes'ko Naranjo'ra igon ziran, naita «biderik errezenetik» joan, edo obeto esanda, txarrena ez danetik. Iru euskeltzale mutil oneik, beraz AGUR'en irakurleak, aitz igotzaille trebeak dira, baiña kontuz ibilli gero mutillak, zueklako gazte kementsuen bearrean gara-ta. Gure zorionik beroena zuori.

BASA-JAUN

Bilbo'tik

Nik, aurreko lantxoan zerbait esan neban Bilbo'ko jaietzaz. Beste izparkari batzuek ere, jardun dira orretzaz. Geienak, bat dagoz: Bilbo'k ez dabela azalitzen bere nortasunik jaieri dagokioenez.

Aburu batzuk irakurri dodaz gai orri eragiñaz. Euretariko bat auxe: Egoki izango litzakela ibaian goitik bera gabarra aundia erabiltea kantariz beteta, aintziñako oitura bat gogoraziaz.

Ez deritxot asmo orreri aldrebesa. Gabeko amaikak aldean-edo, gabarra aundia argiz ondo orniduta, kantariz beteta ta beste ontzitxu pilla batek inguratuta, ikuspegi polita lortuko leukie, polita ta alaia, abesti ta eresi artuta. jakiña, euskal tajuz egosita, Bizkai'ko uri nausiari dagokion lez. «Bilbainada» bat edo bestegaitik, ez giñake asarratuko.

Millakak umetxoen jolas agerketak eralduaz; bosteun bat txistulari edo geiago, kalerik kale erabilliz, erriari jaikia ta bizi-poza emongo leuskioe. Ikusgarria izango litzake baita, txistulari guzti orrein doiñuan, pare bat milla ezpatadantzari danak batera kabriolak egiten ikustea. Orretarako, San Mames'ko ostiko zelaia egoki litzake.

«Betiko leloa!» —esango dau batonbatek—. Baiña ez da bardin dantzari zortzikotea ikustea ta bi milla dantzari danak batera ikustea. Lilluragarria da benetan. Ni, ikusita nago.

Urrengo kantatxu orren giarragaz be, saltzatxu txukuna, gozoa, lortu leiteke:

Aurrak ikas zazute
Euskeraz mintzatzen
Ongi pilotan eta
Oneski dantzatzen.

Ori ere betiko leloa dala? Izango da, baiña maiatagarrien kutuna.

Gaurko giroarentzat beste zerbait barri asmau bear dala? Neuk asmauko dautsuet.

Zar-zarra izan arren, barri-barri izango litzakena: AKELARRE bat. Jai arrigarria izango litzake, mozolo ta zanpazar jantzirik joango litzaken ostetza jostariaz. Lizun usaiña izango leukela jai orrek? Ez ikaratu orregaitik!

Gaurko «Gau Txori» izeneko aretoetan egiten dituen jaiak baiño gazigarri geaiagokoa izango litzake, gaurko giroari ateak apurtxo bat zabalduaz. Zer uste dozue ba, Zugarramurdi aldeko gure asaba zarrak, akelarretan, akerrari ipurdian mosu egitera joaten zirala? Onak zuazan asaba zarrak, gaberdian biboliña joten ibiltzeko!

Iruñarrek eta Gazteiztarrek bai omen dute euren giroa San Permin eta Zeledon'ekin. Eraldu daigun, geuk be, nai ba'dozue, e? AKELARRE bat. Pilipinas'ko aratozteak baiño ospe aundiagoa lortuko leuke. Egon ziur!

Eta ortarako, ez genduke izango mendira joan bearrik. Ortarako ere, San Mames zelaia egoki letorke. Bere arkupe ikusgarritik illargi dizdiratsu bat dindilliz jarri ta... gauza poliatgorik!?

Azaldu daitzuetan antzerki antzo: Gabeko amarretatik amaikaterdiak bitartean, zelaia betetuko litzake, bertako argi-gaien laguntzapean. Amaikaterdietan, argiok, apurka-apurka itzaltzen joango litzakez, eta era berean, illargia mendi ganean azaltzen.

Amabien buruan, illargi osoa! gorrizkea! argitsua! Argi ori aski diteke illunpetan ez lotuteko. Une orretan asiko litzake pesta; ijiji ta ajaja, kanta ta dantza, zuurki eraldutako neurri baten barruan.

Eederra asmau dautsuet oingoan! Alakorik eralduten ba'dozue, indarrak galduta daukatazen arren, neu ere joango naz ori ikustera, neure emaztearekin.

Amaika lagun agurtu bearra izango neuke, asi Baiona'n eta Karrantza'raiño!

ABELETXE

Arrankudiaga

Igaro dogun Iraillaren 19'gnean, Arrankudiaga, Ugao, Zaratamo, Zeberio ta Zollo eleiz-barrutietako gaztediak antolatutako bigarren kirol-leiaketea amaitu zan. Jakiña, leiaketa oneik asmo bat dabe: gaztediaren arteko adizkidetasuna indartutea, Aurten, jai oneik ospatu diran erria Arrankudiaga, txikerra baiña garbi-polita, izan da. Toki egokia onetariko gauzak antolatzeko.

Egun ortan, Ugao'ko «Etorki» txistularien biribilketa alai batekin jaiak asi ziran. Gero, meza nagusia, ta jaietara etorritako gazte-talde guztiak bertaratu ziran. Jaupa amaitu ondoren, «Etorri» orren dantza taldekoak dantzan egin ebezan, ain aderto egiten dakiezan euskodantza ederrak, Pelota-tokian au, ta an zan oztetza andiagandik sutsu txalotuak izan ziran.

Dantzak amaitu ziranean, eskuzko ta palazko jokoaldiak ikusi genduzan, ta oneik izan ziran irabazle: mutikoetan, Arrankudiaga txapeldun, eta bigarren Zollotarrak; gazteen artean, Zaratamo txapeldun, eta ondoren Arrankudiaga. Palaz, Zaratamo'koak lenen, ta Zollo' koak bigarren.

Pelota jokaldien ondoren, eskualde ontako auspolariak, irurogetabost urtetik gorakoak danak: Zeberio'ko Juanin, Matutena ta Pepelon; Zollo'ko Peli ta Zaratama'ko Txabiri. Txalotza eten bako baten euren soiñu jotze azkarra erakutsi euskuen, an gintzazan guztion atsegiñerako.

Auspolariak amaituaz batera sarien banatzea —onak eta ugariak eurok. Ta esan bearrean gara jai-antolatzailleak erakutsi euskuen gauza bat: pelota-jokaldi, dantza ta soiñu-jotze tartean ardao zuri ederrez saritu ebela bertaratu zan notintza. Esatea merezi dabena berau.



Eberdian, leiaketan sartu ziran gaztetxu guztien bazkaria. Arratsaldean, ostikoketa jokoaldia, leieketan txapeldun urten zan Arrankundiaga —bigarren Zeberio izan zan— beste talde guztietako onenekaz osotutakoaren aurka. Ta au amaitu zanean, oroi-ikurren banatzea, ta ez gitxi ganera, euren artean Kili-Kili'k eskeindutakoa be bai, ta andienetekoa Bilbo'ko Atletik'oak emondakoa.

Ikusten danez, ba-daki eskualde ontako gaztediak jai garbi ta jolas alaiak eratuten, ara joan zan oztetzaren atsegingarri bai benetan! Ori dala-ta, alderdi bikain ortan izan giñanok egun alaia igaro genduan, beraz, gure zorionik beroenak AGUR'en bitartez, eusko giroko jai ta jolas eder orreik eratzen alegindu diran guztiei.

BALBIN

Arratia

ARTEAGA

Indarraren indarkeria ta beaztuneko minoiñazeak, erri ontako jaien jaun nagusiak. Umetxu gazte bigunak ziran gatz eta piperrez, su ta txingarrez, txistuz eta txaloz, makalduz agertuten izan dan jaiari, igurtzi bizikorrak egiten asi ziranak.

Txistuaren soiñu txairo alaiak baiña, belarrien batzuetan minbizia sortu-arazi, ta an joan ziran txistuak egazka, sasira. Erritarren beroa ta irakiña ertzaiñek bakebideratu eben. Noiz igartuko dogu, betirako, gure soloetako txominbedar ugaria?

IURRE

Begoz erne ta zur 1935'gngo «kintoak». Udagoiengo edozein alditan Yurrebaso'tar Mikel'en deia entzun al izango dabe aldizkari au bide izango dalarik.

Jo-ta-ke diardu gure Bekoetxe'k bururaste lanetan, gaztaroko adizkide zarrakaz mai zabal apatz bat inguratu naian. P. A. Etxebarria'k egun aretarako eratsiko dituan oillagorrak eta erbiak ugari izango diran ezkero, bazkaldarrak praka garritsuetan aurkeztutea obe izango litzake. Egon, bada adizkideok, AGUR onen zain.

Txato-Bizenta'ren etxean alako biotz-irri gozoa izan genduan. «Beti-Bizkor» Bazkuna'k orman kakotuta orri aundi baten «euskal-euskerazko» oarmen eta iragarkiak ikusi al izan genduzan. Gora Beti-Bizkor!

ARANTZATZU

Artetxe'tar Lontzo, emaztetzako andratxo baten eske Urkiola'ko baselizan zazpi aldiz belaunikotu ta zazpi aldietan Andoni doatsuaren ezezkoa apalik entzun ondoren, Pitiño izan dau arrezkeroko ezkontza-egillea. Eta Pitiño berak bere, gorengo baserri-etxeak eta ibarretakoak ixil-mixilka arakatu ondoren, oporra ta porrota baiño besterik ez dau etxeratu.

Ezkontzamiña osorik galdu ez dauan neskazarren batek maitasuna, norbaiten beroa ta abi gozoa biribildu nai ba'ditu, idatzi zuzenbide onekin: Lontzo Artetxe, Olarra, Arantzatzu (Bizkaia) Edo beste onekin: Pitiño Ordeñana, Arantzatzu (Lenengoa, ezkongaia; bigarrena, bitarteko ari dana).

LANDAJUELA'TAR A.

Ixurtza

IXURTZAKO JAIAK

Erri onek bere jaiak ospatu ditu aurten: Jai ikusgarriak.

Ixurtzako gazte taldeak antolatu dauz aurtengo jaiok.

Jairik aundiena Erdoitzako Andra Mariya egunian: Meza-Nagusia, erriko taldeak abestuta; Mus-txapelketa, umeen jolasak eta jantzari txikiak be bai. Jende asko ikusi zan jai onetan.

Erriko gaztediaren batasuna euki geiñuen batez be, danon pozerako.

GARBIÑE A. E.

ARTETXE'TAR JOSEBA, JOAN ZAIGU

AGUR JOXE: Aspaldiko urteetan, zenbat aldiz aitatu ta idatzi zendun, uste gitxienean beste mundura joango ziñala? Guk, ala ere, ez gendun aintzakotzat artzen. Orren gazte joan bear zendunik, gitxiago siñistu. Irurogetabost urte oietan, zenbat kezka, zenbat naigabe, zenbat ez-bear, zure biotz eta izate guziaren samingarri. Zenbat atsekabe eman zizuten zure adizkide ta ustez lagun ziran guziak! Naigabetasun guzi aiek batuta, zure biotzak ez zun indarrik izan, ta azkenik joan zera Jaungoiko'aren aurrera.

Ez det uste nik, ezta beste millakak ere, zutzaz geiago txarki esango dutenik. Orain arteko txarki esanak ezereztu diralako.

Milla bederatzireun ta ogetamaseia ondoren, gaur arte, zenbat idatzi dezun! Zure idazti guziak irakurri ditut. Guzietatik geien gozatu ninduenak «Canto a Maritxu» ta «El Abrazo de los Muertos» izan dira. Bigarren ontan une garratz aietako jokabidearen berri ematen dezu. Une aiek, ez ziran lasai eramatekoak. Erraz esaten degu orain, ikusita gero, zer egin bear genun larritasun artan. Eta zuk, zure seme-alaba txiki aiekin, zure emaztearen esturasunakin, itxura gaiztoa zun une bildurgarri artan... zer bideri jarrai? Gelditu ba'ziñan gelditu ziñan. Onarren ordea, txarki esan nai duanentzat ardura gutxi. Guztiok kristauak izanik, nola izan leike gorroto lagun urkoari?

Bai, Joxe. Geldi-geldika ba-goaz guziok. Gure eguna ere elduko da usterik gutxienean. Bien bitarteko biziera latz oneri, zergaitik eman orrenbeste buruko-miñ? Millakak bezela, azken-arnas unean beren jokabide txarraz gogaituta, ta guzieri barkapena eskatuaz, beste mundura lasai ta pake santuan joan zera, aingeruen antzean, ta mundu ontan geratzen geranontzat, txakeririk egin ba' ziñun barkapena eskeñiaz edo eskatuaz... Goian Bego, Joxe!

Zure eriotzaren berria bereala zabaldu zan Donosti'n. Ezin gendun siñistu ere. Ala izan ordea. Guzion azkena orrela izango dala dakigunez, zertarako gabiltz itz eta pitz itzegiten ta mindukeriak zabaltzen? Zuretzat gendun maitasuna, aundi-aundia, ederki ikusi gendun elizkizunean. Elizak ez zun tokirik ara joan giñan guzientzako. An ikusi genitun zure ezagun, lagun ta baita arerioak ere. Une artan, uste det, berekiko barkatu edo barkapena eskatu zizutela. Guziak umilki zure gogoaren alde otoitz egiten, ta aurrerako, zuri ain minkor zitzaizun itzak ez geiago esateko asmo sendoa artuaz. Bizirik ezagutu



doren gertatutako gertakizunak sakon mindu zuten zure biotza. Urteak orrela igaro dira, korapillo estu ori ezin askatuta.

Ortako bai zendun ordea zure «luma». orrek egertu ditu, guk geroztik irakurri ditugun lerro biziak. Xamurki idatziak, ta iñori gorrotorik gabe eskeñiak!

Ez uste izan, zu izan ba'ziña gu bezela iñork ezagutzen ez giñuztena, zure biotza iñork minduko zuanik. Zenbat milla, zu bezela, gelditu ziran emen, aurrera joan gabe? Oiek nola ez diran ezagun, gaur beste millaka artean abertzale bezela agertzen dira, ta alkar-izketetan beren jokabidea izkutatuaz, emen, bildurtuta edo korldarkeriz, geratu ziran...

Igarotako kondaira ura il zan. Zuk beintzat izan zendun kemena agertzeko, argi ta garbi, zure idatz lanetan, burua goitik zendula ta ez millakak bezela gordeta, izkutatuta ta estalita!

Zu, zure gogoko etziran gudariekin ebildu ziñala ba-dakigu. Gu, beste aldekook ordea ongi jakiñean geunden, zu ta zu bezelakoak ez ziñatela arerio! Zenbat odol ixurtze ikusi zendun guda-leku basterretan! Gudako gorroto urak min aundia eman zion zure biotz on ta xamurrari. Aiek joan ziran! Aiek joan ezin izan zenduna, uste det, il ondoren ikusi al izan dezula.

Zortzi seme-alaba izan zenitun. Sei eskonduak, bat eskongabe ta bestea Kongo'ko mixiolari. Onek eman zun meza, ta beste apaiz gazte arek zure izpiak irakurri; illoba zanez, eziñean, irakurtzean negar malkoak ixurtzeraiño!

Zarrak eta, batez ere, gazteak! Barkatu zuen ustez txarki jokatu ba'zun. Barkatu une larrietako bakoitzaren oztasunak eta jokabideak. Barkatu, ez geiago gorrotorik!

Zenbat aldiz alkar batu giñan, kalean zear ikuste bakoitzean! Bai, Joxe, zu zure eguneroko lanera, ni berdin. Zenbat itz alkarri, igarotakoen berri; ikusten gendunarenak, ta ikusteko gaudenenak!

Guziok euskaldunak izan ta EUSKERA maite izanik, maitasun ori zure lumaz, urteak zear, agertu zenun... oiek orrela dirala, nola leike orrenbestean mindu izatea zure biotza? Ez, Joxe, joanak joan ziran ta kito. Batasunaren bear aundian da gure izatea; joan gaitezan besarkatzera, mundu ontako mixeriak utzita, baita ustelkeriak ere!

Beti esaten zendunez: «Ez begiratu atzera. Ezta albora ere. Aurrera beti!

E. OZKIN

Yazokun arrigarria

Lourdes'ko egazkin-zelayan gertatua. Boeging **baten 57 irlandar bidez-kundez eldu ziran Lourdes'era. Euron artean Dublin'go yatetxe baten uga-zabak** yayotzatik elbarritua zan iru urteterdiko alabatxo batégaz.

Eta M. Jean Dauriac, bertako arduradun nagusiak yazo zana onantxe azaltzen dau: «Gu bideztien izenak artzen gengozan bitartean, amak bere altsoan eukon Tania Hogan bere alabatxo elbarritua. Ontan umea yatsi ta lurrean zutunik gelditu zan. Bapatean bidezti asko garrazika asi ziran, eta ama guztiz zurbilduta gelditu zan, bitartean an egozan guztiak arrituta ikusi eben neskatotxoa taka-taka 30 metro inguruan aretoa zear yoaten. Aitak yarraitzen eutson eta artean biotzikara andi bategaz amak otoi eta negar batera egin ebanzan, areto bazter baten».

Eta M. Dauriac'ek darrai: «Ama arek eukan arpegia baiño dizdira-tsuagorik egundo be ez dot ikusi. Umeak artegatasunik ez eban agertu. Po-zezko txilio bat egin, eta amari ezer ebazteko astirik emon barik erabagiz ibilten asi zan».

Dauriac'en eretxiz, eleizara yoaten dana izan ez arren, yazokun au izadi legez ezin leike azaldu. Mirari dala esateko arintxo da, baiña gauza arriga-rria izan dala ezin ukatu, geure ondoan gertatu zan dana-ta. Egundo olan-gorik ez da gertatu, Lourdes'ko eleizara 12 kilometro dagozan tokian.

Bideztien artean ba zan beste ama bat ume elbarritu bat altsoan ebala. Uste eban minutu batzuk itxaron eta bere umea be ibilten asiko zala, baiña alperrik...

Oin Lourdes'ko Osagille Landolakoeri dagokie eleizatik 12 kilometrora gertu dan yazokun arrigarri ori aztertzea.

GAMA

BATZAR IZUGARRI BAT

Madrid'en, Gotzain eta abadeen arteko batzar bat Iraillean amaitu da. Ainbat eta ainbat gizon eta andra arriturik etorri yakuz egunotan itaunka: Gotzain eta abadeen artean zer jazoten da? Benetan batzar orretan erabilli ta aztertu diran gaiak aundi ta garrantzitsuak izan dira:

Gizonen eskubideak; sindikatogaiak; guda ondoren eleizak artu eban jokerea; eleiz-itun edo konkordatoa bai ala ez; abadeen ezkontzaz zer edo zer; domubide edo kapitalismoaren gaitzak; eleizea laterriagaz baturik ala azke; abadeak nundik eta zelan bizi; politiku-alkartasunen azkatasuna eta abar eta abar.

Orain urte batzuk dirala gai oneik izentatzea bakarrik, gaiztakeria zirudian eta olako gaiak erabilteak, bereala zigorrak euren gain ekarriko ebazan. Zer jazo da urteokaz? «Mater et Magistra», «Pacem in Terris», Batikano Batzar Nagusia ta «Populorum Progressio» agertu zuranetik batez ere gure artean, pizkakapizkaka, aldakuntza aundi bat izan da.

Gure eleiz-gizon askok, eleiza barriztatutearren, Batikano Batzar Nagusiak erabagitako aurrerakuntzak lortutearren, zigorraren bildur bage, burruka asko ditue egiñak. Baiña ez gure eleiz gizonak bakarrik, baita alboerrietakoak ere asko itzartu dirala ezagun be ezagun da. Orain Madrid'eko batzar orreri begiratu ezkero, ba, bertan batzarkide geienak aurrerakuntzeari baietza emon dautsoe.

Burruka onekaz bateon batzuk larregiko erabagiak edo bideak artu dabezala ta eleiz-gizonen usain ona galtzeko arriskuan dabiltzala esan bearrean gagoz. Baiña, dana alperriko ez da izan. Eleiza pizkana-pizkana aurrera doa. Etorkizuna itxaropentsu agertzen yaku ta beti Eleizaren erakutsien bidetik eleiza zuzenago ta egizaleago ta garbiago bat lortu bearra dogu, berak daualako Kristo'ren egi osoa, bakar-bakarrik, Gizadiarentzat guztiz onuratsua dan egi ta bidea. Kristo gabe munduak elburu onurakorrik ez dauala siñistuten dogunok, pozik ikusten dogu Eleizaren gaurkotutzea ta gaztetutzea. Izar argi barri dirdiratsu bat ikusi dogu Eleizaren ortzian.

Ez gaitezen, ba, larritu ta samindu, baikortasunez beterik beti kementsu aurrera jo baiño. Gure Eleiza au gaurkotuteko bertatik urten bear dala diñoenei, barruberruzko onu au esaten dautsegu. Gure Eleizatik urteten dan kristauari ez dautse jaramonik egingo ez Eleizeak, ez munduak. Onena ta zuzenena bere barrutik, bai zar bai gazteak, bai eleiz-gizon bai erritarrak jo ta ke burruka zintzo ta goi-goiko bat egitea izango litzake.

Euskalerria beti izanda aurrenengo ta gorenengo eleiz-arazoetan. Orain gaurkotutze ta barritze onetan, zergaitik ez? Eleizeari guztiok gogor eta zintzo, baiña ez gogorkeriz, lagundu ta bultza egin bear dautsogu, berak gaurko mundu au gaizkatu dagian.

Jaunagaz al dogu, ta ekin arlo orreri.

Gallastegi'tar Kauldi

Gotzaien Sinodo Orokarra

Gotzaien Sinodo bi egin dira Bigarren Batikano Batzarraren ondoren. 1967'gnean lenengoa; 1969'gnean bigarrena. Erabagi garrantzitsuak artu ziran bietan. Paulo VI'ak irugarren Sinodoa egitea erabagi eban igezko urrillaren 10'n Alessandri Batikanoko artu-emonen Zuzendari Jaunak. Batzar au Roma'n egingo ei da. Sinodoa gertatutzeko batzar batzuk egin dira Roma'n. Gaia be jakiña da: «Apaizen eginkizuna ta zuzentasuna munduan». Apaizgo-gaiak buru-auste aundiak sortu-erazten dautsaz gaur Elizari. Gitxien ez Italia'n.

SEMINARIOAK UTSITUZ

Elizak ardura aundia dau apaizai buruz. Apaizgoa itxita millak erriratu ta ezkondu dirala gauza jakiña da. Ogei bat millek urte-barruan edo bardin egingo dabela iragarri da Elizak apaizentzat ezkongetasuna ontzat artzen ezpa'dau. Geroago gazte gitxiago doa seminariora. Seminarioak utsituz doaz España'n ekarri eben egunerokoak eta aldizkariak euren orrieldeetan. Eta alaxe da zoritxarrez. 7.689 seminarista nagusi ziran España'n 1965-1966'gnean. 5.945 ziran 1967'gnean eta 1969'gnean barriz 2.245. Euskalerrian be sartada ederra izan dabe seminarioak. 95 seminarista nagusi ziran Iruña'n 1968'gnean, 40 bakarrik 1969'gnean eta gaur arean be ez esan daiteke. Beste onenbeste esan leiteke Bilbao ta Donosti'ko Seminarioari buruz. Zerbait gitxiago Gaizteiz'ekoari buruz.

Batzar bat egin eben Madrid'en Gotzai ta apaiz batzuk 1969'gko. Lotazillean apaizgoari buruz. Batzar ontako erabagiak Sinodo Orokarrera bialduko dira.

Beste nazioetan be bildu dira Gotzaiak eta apaizak Roma'n egingo dan Sinodo Nagusirako lanak gertatzeko.

Apaizgoaz lan sakona egingo dala ezbairik ez. Baiña zer erabagiko ete da ezkongetasunaz?

Ementxe untzia. Ementxe kozka. Apaiz ezkongeak? Apaiz ezkonduak?

Danetariko eritxiak agertuko dira. Paulo VI'k argi agertu dau bere eritxia ezkongetasunaren alde aurtengo otsaillaren 22'n Roma'ko seminarista nagusiai ta zuzendariai egindako itzaldian.

ZUZENTASUNA MUNDUAN

Garrantzi aundia izango dau azalduko dan bigarren gaiak. «Zuzentasuna munduan». Elizak ardura aundia agertu dau azken aldi oneitan gai ontaz «Populorum Progressio» idazkiak, Aita Santuaren ara-orra joan-etorriak ete bere «Octogessima Adveniens» enziklikak agertzen dabenez. Teologo batzuk diardue lanean gai au gertatzen. Honer, Coloniako Artzobispoa buru dala. Euskaldun bat agiri da batzorkide ontan: Zunzunegi apaiz jauna, Gazteiz'en irakasle ta Bilbo'ko Misio Ekintzaren zuzendari dana. Sorkaldeko Ortodoxoak be parte artuko dabe.

España'tik lau oneik joango dira: Quiroga Palacios jauna, Compostela'ko Artzobispo-Kardenala; Vicente Enrique Tarancón, Toledo'ko Artzobispo-Kardenala; Benavent Eskui, Granada'ko Artzobispoa ta Etxarren Isturiz, Madrid'ko laginkidea. Euskaldun bat. (Baiña noz Euskalerriko Elizaren izenean?)

Munduan zuzengekeri aundiak dirala gauza jakiña da. Ezin ukatu daiteke. Zuzengekeriok ikusteko ez da asko ibilli bearrik.

Sinodo au dala-ta eguneroko batzuk ez dabe ain zuzen jokatu. Italia'ko eguneroko bik arrera txarra egin eutsoen Sinodoari. Argi itz egin eban Rubin idazkariak: Sinodoan —esan eban— 212 Gotzai izango dira; 14 Sorkaldekoen izenean; 10 Ordenetako Nagusi 19 Batikanoko ordezkari. Eunetik 15 aita Santuak aukeratuak izango dira. Apaiz batzuk be parte artuko dabe Aita Santuak dei eginda. Sinodoak illebete iraungo dau.

Munduko zuzentasuna egitea —esan eban geroago— gitxi batzuen eskuetan dago. «Zuzengekariak geituz doaz eta Eliza ixilik ezin egon leiteke. «Makalen alde jokatu bear dau». Teologo ta jakitun asko gerta-lanen aurka dagoz ez Sinodoaren aurka.

Onela Rahner, Metz eta Hans Küng. Lan ixillegia egin dabela, gitxiegien artean. Oiñarri gitxi ei dauko ganera Biblian.

Zerk urtengo dau? Zer ikusiko dogu?

Eliza, mundua zai dago. Onurakor izango al'da Sinodo au kistar bizitzarentzat.

GOIRIA

AGUR

II URTEA
23 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - URRILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

BARRITUEZ

Beti, gizonaren kondairea egunerik egunera ta urterik urtera aldatuez agertu da. Beti aldatze onek burruka bat ekarri dau gizartera, batzuk, zar-zaleak eta beste batzuk barrizaleak izan dira.

Baiña, ez dakigu zergaitik, gizaldi batzuk geldizaleak izan dira; esaterako Erdiaroa; eta beste batzuk, ostera, eraginzaleak, barrizaleak: esaterako bizkundealdia amabostgarren gizaldi inguruan. Egia esan, lenagokoa egunera ekarri gura eben, baiña ori barritze bat zan, aurrekoakandik artutakoa aldatzea zan.

Gure gizaldia oso barri-zale agertzen jaku, batez be Eleizearen aldetik: Pio XII'ak asi eban barritze au bildurrez beteriko oinkadaz, gero Jon XXIII'ak bultzakada aundi bat emon eutsan, eta bide zuzenak artzeko Gotzaiñai Eleiz-Batzar Nagusira deitu eutsen. Batzar onetan artu ziran erabagiak guztiz barrizaleak ziran. Baiña gero erabagi orreik bete egin bear: «au lana, au naigabea». Emendik etorri dira gaurko gorabera ta burruka asko: batzuk aldakuntza oso-osoa ta sakon-sakona nai dabe, beste batzuk agiriko aldatze egiñaz baretuten dira. Batzuk barrutik aldatze-indar au atera gura dabe, beste batzuk aurkalari lez eta kanpotik ba'lebiltza lez agertzen dira. Eta, zori txarrez, beste batzuk ezelako aldatzerik ez dabe nai: gaur be geldi-zale, zar-zale agertzen dira.

* * *

Abadeak eta gotzaiñak, Espaiñatarak, Madrid'en alkartu ziran barriztatze au eratuteko asmoz. Errez aitzen diran zioakaitik, abade euskaldunak ez ziran joan, Bizkai'tik beintzat.

Batzar onen aurrez, geienbat, zar-zaleak jarri ziran eta an artu dabezan erabagiak aurreratze bat izan dira. Batzuk gogoratu daiguzan: Geldi-zalekeria azpiratu bear dogu eta Vaticano'ko bigarren eleiz-batzarraren erabagiak betetu.—Gure gizartea giza-eskubideak betetzetik urrin dago: guztien onaren aurka ez doazan barriak zabaltzeko eskubidea, batzarrak egiteko eskubidea, erriketan esku izatekoa, lan egitekoa, lurralde guztien eta baserrien aurrerapidea, gizonen bardintasuna, gudaritzarako barrurik ezarena, gorputzeko osotasunarena, gorputz eta gogo-zigorrak debekatzea, ondasunak bear dan lez banantzea, baita 137'k onartu eben au: «Bearrezko izan zan orduan, gure erri zatituaren barruan anai-arteko gudaketa sortu zanean, benetako alkartasun-bide ez giñala izan autortzen dogu, eta orregaitik parkeste gagoz». Baiña, zori txarrez, berba oneik bear zan beste baietz ez eben lortu.

* * *

Gero Erroma'ko sinodoa, Eleiz batzarra. An be agertu dira zar-zaleak eta barri-zaleak. Batez be Sinodo-arazoa deritxon alkarteak lana ugari egin dau. Ludi guztiko aberrietatik eta laterrietatik, taldeka, sartzen dira arazo orretan abadeak. Euskaldun-talderen bat be ba dago. Oneik barritzeari indar geiago emotea nai dabe, aurrerago joan gura dabe, eta orretarako euren eretxiak sinodoaren aurrean eta gizadi guztiaren aurrean agertzen dabez. Egiten dan barritzea oso laburra dala ta, euren abotsa sendo agertu nai dabe.


* * *

Alderdi guzti oneik onerako izango ete dira?

Ba leiteke. Or barruan indar aundi bat eta ardura sendo bat dabiltz, baita, uste dodanez, goi-indar adoretsu bat be. Baiña geu ezin geintekez besoak batuta geldi egon, guztiok dogu, une onetan egin-bear sakon bat, ez da bidezko gauzea iñork egiten dauan lanaren ondorenari, geldi, itxaroten egotea.

Gure mundua barrituez doa, barrituez joan gaitezan geu be.

AGUR



IKASTOLAK MINTZABIDE

Karrikatik ninjoala andereño batez topo. A'ko kursilloetan izan dala nenkialarik-edo, galdezka asi natzaio:

—Zer moduz kursilloetan?

—Ongi, txit ongi.

—Noruntz zuzenduak izan dituzute ikasketak? Zer erakutsi dizute?

—Aurrei nolaz erakutsi bear diogun, orixe erakutsi digute. Aur eziketaren mota guztiak erakutsi dizkigute. Eta bai trebeak zirala! Pozik nator.

Aste berean, beste andereño batez. Au, berriz, B'ko kursilloetan izandua. Galdera berdintsuak:

—Zer moduz kursilloetan?

—Ongi bai, ongi.

—Zer erakutsi dizute? Aurrei nola irakatsi?

—Ez bada, aurrei nola irakatsi ez digute erakutsi. Gurasoak nola «konsientzaitu». Orretara zuzenduak izan dira erakutsi guzti-guztiak.

—Pozik etorri zerala esan didazu arestian...

—Bai... baiñan... mikatztasun batez etorria nazu. Ikastolatik Jaungoikoa kendu nai orrek ez dit biotza ase...

Eta andereñoa kezkatua joan zait, neroni kezkatua utziaz.

Ikastolak norentzat dira, aurrentzat ala gurasoentzat? Zer erakutsi nai diete aurrei? Iñundik ere bere gurasoek maite ez duten zerbait. Eta gurasoak maite dutena ez da, noski, «apostol» berri auek nai lutekeana. Eta apostolu auek bakarrik dutelarik egi osoa, eta euskaldunok izan bear degun konsientzi oso eta garbia, ba... garbi dago gaiñontzekoak konsientziatu gabeak gerala.

Goazen baiñan aztertzen. Goazen «konsientzi» orretara eramango gaituzten giltzak billatzera. Beren usteetan auetxuk dituzute:

a) «*H*». *Batasuna bait-da.* Beren batasuna, noski. «H» gabeko batasuna baldin ba-da ere geienena, izkuntzaren erreztasuna maite dutenena, demografizale edo euskaldun geienena eta, maiori onekin, demokraziarena. Baiñan, nere ustez, «H» ikurrak au dakar bere atzetik:

b) *Euskera mordoilloa.* Antziñako euskaldun jatorrak esaten zuten «euskera gaizota», diot. Gaiztotu, erdeldundu, narraxtu eta pozoitzen duan euskerdera edo euskerantoa. Alaz ere au ez da okerrena. Giltz bi auek garamazkiten gelatik urren dago egizko ikurraren gela. Gero, zer datorren?

d) *Ikastoletan ez da gurutzerik ikusi bear. Ikastoletan ez da kristautasunik, siñismenik erakutsi bear.* Arrazoiak:

e) *Euskera bakarrik erakutsi bear da. Siñismenik ez.*

f) *Siñisgabekoentzat errespetoa bear da, naiz fededunak geiago izan.*

g) *Aunditzen diranean egingo da bakoitza, nai ba'du, kristau.*

Izango diranez guraso ugari marxismoa eta sexualismoa beren aurrei ez erakustea naiko lutekenak, gurasoak konsientziatu nai ditu (e) atalak.

Eta (f) orrek gogoratzen digu, berriz, Errusi menpekoetan, berak diotenez marxistak diralako geienak, ez dutela errespetorik kristautasuna ikasi nai dutenentzat. Ango ikastoletan marxismoa erakustez utzi eta errespetoaren izenean kristautasuna erakusten asten diranean beste gauzarik pentsatu genezake. Bimitarte orretan inbutuaren «konsientzia» orreri ez diogu jarraitu nai.

(g) orretan dagokionari aztertzeko, galdetuko nuke: zergatik? Erantzuna au luteke: «Gure aurren pentsakera ezin genezake tajutu. (Berak bai) Kristau izan nai ba'dute egingo dira gizontzean».

Arrazoi txepela. Gaur edo biar kristau izan ditezken eraberean izan baiditezke anti-kristau. Eta «h» erakutsita, antiatxe. Eta bestalde ere bai. Baita euskera erakutsita euskeraren etsai.

Eta siñismena erakutsita, zergatik gero ez utzi siñismena? Siñismenak altzairuzko kateak ote ditu bada? Siñismen aurkako itzlari bat izan genuan gure ikastolan itzegiten, eta ikasi teolojiak ez zion galerazi sotana zintzilik laga zezan, itzalditik zortzi egunera. Ez da beste apaiz batzuei. Ez da frailegai izandako anitzei. Ez da etorkizunean utzi naiko dutenei...

Teori-filosofia asko dutenei, naiz bizitzaren filosofitik gutxi, utikan! egingo diogu. Nik, beintzat, naiago det oraindala berrogeitamar urte ikastolak sortzeko burrukan, eta zer burrukak!, ibili ziranen konsientzia izan, egindakotan azpijanean dabiltzanena baiño. Ak, pizti eta egaztien konsientzia bai-zuten. Txoriek ere bere erara erakusten diete umetxoei. Egan erakutsi, bizitzen. Eta bizitzan azke ipiñi, gero, nai dutena egin dezaten. Baiñan erakutsita. Ez det uste gizakia abereago bear duanik.

Bai, «a», «b», «d», «e», «f» eta «g» orretan dute bukaera. Geiago, oraindik, nere iritzira. Ziur naiz euskaldunok sei izki oietara «konsientziatuko» ba'giña, ez lirakela ere konforme izango. Arrazoi berarekin, esango liguteke geiago konsientziatu nairik: Zein dira gurasoak beren semeak bataiatzeko? Zergatik aur bat beartu siñismen batera? Zergatik konfirmazioa, jaunartzea eta abar?

Laiñokerietan pulunpan dabiltzan teologo askok une ortantxe asiko lirake begiak zabaltzen, baldin eta erantsitako makarraz josita ez baldin ba-dauzke.

Urak joanik geroz «buruz» aritzea alperrikakoa izan oi da.

URRUZOLA'TAR ESTANIS, «UXOLA»

BETIKO KEZKAK...

Gure aldizkaria ta batez be nere lanak garratz-xamar ei dira, ez irakurle geienentzat baiña bai apur batzuentzat; orregaitik ez litzake iñor arritu bear, mundu onetako arazo guztiekin be bardin jazoten da-ta, danok ezin geinkez iritzi batekoak izan.

Guk, geureak doguzanen alde jo ta ke gabiltzaz; gure ustez bearrezkoa da egia billatzeko lurrun eta lauso artetik gure burua ateratzea eta, zergaitik ez?, gure errikideeri auzi onetan laguntzea. Ez dala ori gure erriaren giroari (edo batzuk nai leukienari) mesederik egitea? Etorkizunak zer erantzuten daben ikusi bearko.

Bitartean, bada ez bada, gure aldizkariaren inguruan danetariko «mitoak» sorterazi dira, mota guztietako «etiketak» ipiñi dauskuez, ez erri xearen artean baiña bai Ikastetxe naguzietako ikasle talde batzuen artean: integristak, eskumatarrak, kapitalistak (ba'geunkez!) burgesak, klerikalak, euskeraren batasunaren etsaiak eta ez dakit nik zenbat lerdokeri geiago. «Mito» orren sortzaille ta zabaltzailleak betiko bi edo iru irakasle izan dira, batasun bakartzat euren «batua» eskeintzen dauskuenak... or konpon!

Alperrik izango da, bear bada, baiña gu ez gara «jaun» orreik diñoena ta irakurle bakoitzak eta batez be ikasle bakoitzak erabaki bearko dau gure bizitza edo gure ekintzaren gora-beeratan ondo sakondu ta aztertu ondoren; dana dala arrokeri barik esan bear dogu igarle barri orren aldean zeozer egin dogula gure erriaren alde; borondate oneko zarien ikasleok irakurri lenengo Agur «mitoak» zabaltzen itsu-itsuan jarrai baiño len.

Ikastolari buruz esan nituanak (ba-nekian) ez dira guztiz atsegin izan. Kristau eziketea zer dan ez ei dakit, atzeratuta geratu ei naz eta abar... Ba'liteke, ni premiña aundiagokoak zirala uste nuen arazoetan nenbillen bitartean, nire kritikatzailletariko batzuk or zebiltzen abadeen gona artetik urten eziñik, katoliko alkarte guztietako ekintzan. Ni ez naz iñoiz orretarikoa izan, katoliko epela izan naz beti... baiña Jaunak!, orain batzuk 180°'ko gira-bira artu dabe. Eleiz aterpe guztiak «bustitzen» zebiltzenak gaur arro erakusten dabe euren «progresista» edo dana dalako itxurea; len, adi bidez, dantza «lotuaren» aurka txotxolokeri aundienak egindakoak gaur «whiski» ta beste dantza lekuen aldeko dituzuz... eta ez noa geiago esaten.

Baiña ori ez da ezer umeen eziketeari buruz onartzen dituen elburuekin konparatu ezkero. Ondo ezagutzen ditugu irakasle ta ezilari batzuk sartu nai dituen asmoak eta lortzeko bideak. Orretarako, lenengo ardurea, ikastoletako guraso-alkarteak ez ikaratzea da, astiro ta bigun baiña sendo ipiñi bear dira oiñarriak, euskal naiz kristau eziketaz jantzirik. Zein da gitxi gora beera «desegite» orren korapilloa? Gurasoeri buruan au sartzea: «Umeeri ez jake aur aroan ezertariko erlijiorik irakatsi bear? ogei urtera eltzen diranean eurak aukeratuko dabe bata edo bestea; adiñeko egin baiño len kristautasunean ezitzea ume bakoitzaren eskubidearen aurka jokatzea litzake».

Maltzurkeri aundiagorik ezin asmatu! Jakiña, urte mordo epe orren barruan apurka-apurka sartuko jakez beste iritzi batzuk ume edo mutikoaren «eskubideak» kontuan larregi artu barik! Gaurko Irakaskintza legean egun bat izaten da «de libre eleccion» edo dana dalakoa.

Egun orretarako kristau-ikasbidea ikasten bialtzea onena litzake, umeak gorrotoa artuko dautso-ta; jakiña, umearentzat askoz atsegiñago da ikastea baiño jolasean ibiltea. Orduan irakasleak gurasoari «ez derrigor bialdu, itzi berari...» Eta gero zer? Gurasoak lotan jarraitzen ba'dabe...

Nik au itanduko neuskiet eziketa orren aldekoeri: Zer erantzun bear da, umearentzat senide edo lagun on bat il ezkero? Zer erantzun, nun dago Gotzon diñoenean?

«Ezerezera», txakurrak lez lurpera edo illargira joan dala? Zeruan dagola esan ezkero ipuiña ete litzake? Ala beste amabost urtean mutututa geratu bearko ete dogu? Zerura, erantzun ezkero zeozer geiago azaldu bearko umeari, zer dan, zergaitik eta nortzuk doazen eta abar. Ez da ez, erreza erantzuna ta gitxiago darabilgun gaia. Noiz konturatuko ete dira gurasoak? Batzuk bear bada iñoiz be ez, baiña beste batzuk euren umeen eziketan lenengo uts-une, uts-une bildurgarriekin aurkitzen diranean.

Ez Jaunak, ez gara gu integristak, ez klerikalak eta gitxiago kristau onak, baiña guk ez dogu «geure burua zuritzeko» gure betiko errizaletasunaren etsaieri seme alabarik salgai ipiñiko! Gu burges naiz proletario (ba ete dakite ori zer dan?) lengoan jarraituko dogu, baiña Kontuz! Auzoko ekintzailleen itzalpetik etiketak jartzen asi baiño len, begiratu ispilluan eta ikusi zeure aurpegiaren irudia. Gero ba'liteke ixillik egotea!

Mingor baiña anaikor.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

IKASTOLAK DIRALA TA ERANTZUNARI ERANTZUTEN

Gaur egun arrakasta andia artzen asi zaizkigu zorioneko ikastolak.

Guztiak egozen adi, ea zerbait berri noiz etorko. Oraintsura arte euskal kulturan egoan ezerezean, guztiok genbiltzan non ze berri, euskerearen birikek noiz, nondik eta nola aize apurren bat artuko.

Azken iru urte auetan izan dugu abiadarik sentikorrena, noski. Askoren ustez bein eldu da izkuntzearen ta euskal nortasunaren salbabidea: ikastolea.

Lantzean bat, lantzean bi, apurken ugalduz joan dira; eta naiz ta Euskal erriko biztanle guztiak kontuan artuaz, ikastoletako umeen zenbakia oso txikarra izan, dena ta guzti ere, leengo ikusian zerbait egin dugula esateko moduan gaude.

Argi ta garbi ikusten dogu guziok gure egoerae: albisteen zabalgunde bide urriak, bere izkuntzan ezjakina jenderik geiena e. a.

Ariñik arin eta euskerearen salbabide ia bakar ta ganorazkoa ikastolea da. Beste eusgaillu batzuk ere premia bizikoak bear ditugu, baiña eurengana eldu artean ikastoleagaz ekin bearko.

Orrezkero gaur salatzera noan bidegabekeri au ikastoleari buruz izango da, noski.

Baten ez eze ainbat biderrez entzun dut gurasoen ezpaiñetatik, umeei eurek iñondik iñora ulertu ezin dituzten itz, tankera ta eztakit zer geiago irakasten dautseela.

Seme txikitxu bat eskolara bialdu gabe eukan bilbotar andra bati galdetu neutsan, umea ikastolen batera bialtzeko amesik eukan ala ez. (Ama onek semeari euskerea irakasten dautsa, eta erderarik aitatu ere ezin liteke egin semetxuaren aurrean). Ta ori ta guzti ere bere erantzuna ezetza izan zan, ikastolan eurek ekien euskerea barik askozaz ere gaitzagoa irakasten zitzaiela-ta. Beste iru lauk berdin esan dauste.

Ni neu enabil arazo orretan lar murgilduta ta ez dakit zer euskera erakusten zaien leku bakoitzean, baiña lantzean ikastol batzuetan negargarrizko erderakadak irakasten dautseezena, egi aundia da. Esate baterako.

«Zelan daukazu izena» esan bearrean «Zelan deitzen jatzu» eta beste olango asko.

Pentsatzen egoten naiz nolako kontzientzia eukiko duten «euskaldunak bat garela» ta «euskera batua'ren izenean iru urteko ume orriei euskera batua irakasten asten diran andereiño, edo obeto esan, aiei atzetik bultzaka dituzten sasi-iraultzaileak.

Euskera batua irakatsi bear zaiela! laga ezazute apur bat geroxeagorako, sei-zazpi urte dituztenerako, bakoitzak berearen euskalkia polito erabiltzen dutenean, orduan maillaka maillaka sartzen joateko batuak dauden gauzetara. Au nik ez eze, euskal inkuntzan ospetsuenak diren aotik entzunda ere ba dugu.

Ideia onen aurka gazte iraultzaille ta berritzaille onek aitzaki au jartzen dute: Bilbo'ko ta euskera ez dakiten gurasoak umeai euskera batua irakastea nai zutela, Euskal erriko jende guztiagaz aitu aal izateko.

Ori sinplekeriz begiratu ezkero sekula asmatutako jokabiderik zoragarriena da. Baiña gurean bezela, inkuntza narraz dagoan erri batean ain erradikalismoz beteriko iraultza bat onartu aal liteke? Ori komunismoak eta marxismoak bezela gizarte berri ta eraberritu bateren amesean ibiltzea litzake. Euskerearen batasuna erreidu barik eroateagatik, biar etsiko batuaren izenean, orain itz egiten dan euskera apurra erauzi egingo diogu erriaren ezpanari.

Nire oarra, orain arte milla bider berresana, auxe da: KONTUZ ERRIAGAZ, IDAZLE GUZTIOK KONTURATU ZAITEZTE ERRIARENAK ETA ERRIARENTZAKO ZERATELA.

MAISTEBURU

Adiskide batek esan didanez ANAITASUNA aldizkarian nerekin edo nik emen esandakoarekin sartu omen dira. Poztu egin naiz ori entzunda, euskeraz zerbait diranak ere irakurtzen didaten ezaugarria bai da. Ta ez orregatik bakarrik. Alako lantxo asko argitara eman ditut ta orain artekoari iñork ez dio aurka egin. Beraz ez nabil gaizki. Gaiñera, kontu ura zala ta norbaitek nunbaitetik erasoko zidan ustea ba-nuan, geroago euskal idazle baten eskabidez Larresoro'n «Sustrai Billa» irakurri bai det. Bere egilleak erakusten duanez «bein batetan», «etxe batetatik» eta olakoak dira esakera jatorrak. Ala izango dira noski. Gramatikan edozein amar urteko umek daki nik aiña ta liburu orretako irakatsi asko neretzat latin dira. Au irakurrita batek baiño geiagok esango du, orduan zertarako sartzen da olako kontutan? Zertarako sartzen naizen? Gaur gauza asko gaizki idatzi arren oker oien aurka iñork muturrik agertzen ez dualako. Gaiñera, gramatikan jakin ez da ere ortik zear idazten diran oker asko gaizki daudela ezagutzeko ba-naiz.

Danok dakigu izkuntzak denborarekin aldatzen joaten dirana.

Aldatze orretan izkuntzaren legeak oinperatu ez ba'dira forma berriak ontzat ematekoak dira. Ez gera ibilliko esate baterako orain laureun urteko aditz formak biztutzen, gaurkoekin lengoekin bezela gauzak argi azaldu al ba'ditugu.

Baiña auzitan darabilgun kontuan forma zarrak omen dira legekoagoak «bein batetan», «etxe batetatik» eta antzekoak eta ez gure aldean aspalditik esaten diran «bein batean», «etxe batetik» eta lagunak. Forma zarrak ba'dira jatorragoak berak erabiltzea litzake zuzenena. Baiña nik ortarako ontan jakintuak diran geiagori aditu nai nioke: Lekuona'tar on Manuel ta Akesolo'ri gutxienez.

Gure lantxu bat egiteko UMEEN DEIA aztertzen ibilli naiz eta bertan Euskalerri'ko alderdi guzietako umeen ipuiak irakurri ta iñork ez du idatzi «bein batetan» eta bai «bein batean» «bein batez» ta olakoak, ipuieri asiera emateko.

Guk ordua esateko soillik ikasi degu modu ortako «batetan» ta lagunak esaten: «Ordu batetan bazkalduko degu».

«Ordu batetatik orain arte zure zai egon naiz.»

Mugatuak ez al dira ba abek?

TA ori ez da mugagabetasunaren ezaugarria soillik, beste egiteko geiago ere ba-ditu. Ez da erreza izango berau noiz jarri ta noiz ez ikastea.

Bein ontara ezkero TA jartzeaz edo ez jartzeaz uts egindako esaldi batzuek aztertu ditzagun. Beti bezela okerra zuzenduta parentesis artean jarriko degu.

«Xenpelar zazpi urtetan Egurrola'ra joan zan.»

Esakera jatorra dirudi goiko orrek, bada bere antzeko geiago ere entzun izan ditut. Oraindik orain adiñeko bateri au entzun nion:

«Larogei urtetan il da.»

Baiña lenbiziko esakera orrek beste au ere esan nai du, alegia Xenpelar, urte batean eta bestean eta bestean zazpi aldiz Egurrola'ra joan zala.

«Hamabi urtetan (urtean) jendetza 585.546 bizilagunez gehitu dala.»

«Paris'ko poliziak maiz askoan (askotan) egiña du eta, orain baiño lehen egin-kizun ori.»

«Chinan urte askotan (askoan) izandakoa».

«Gebara'ko kondeak denbora askoan izan dira Oñati'ko lurraren jabe». (Ongi idatzita, aita Villasante'k).

KAMIÑAZPI

PARKATU POETA!

Ba-dira gure artean gizon maltzurrak eta zeozer dakitelakoan ezer ez dakitenak, euren jakituririk eza, bear ba'da, beste askoren artean...

Zelan zugaz «sartzen» ausartu? Zelan zulako Euskal-erriko «Homero» bateri «guti ta gaizki» euskera dakiala esan? Zelan, iñoiz euskerazko itzaldirik entzun ez dautsuenak?

Iñoiz erderazkorik egin ba'dozu, adi bidez Santiago-Apostol'eko antzokian... or doatsuz zure betiko etsaiak adarra joten edo obeto esateko txistua joten... Baiña zuk, gizon argi orrek laister ezagutu zenduzan eta berealaxe salatu; arerio poltikoak, aurki! Ertzaiñik an izan ba'litz!

«Guti» dakizula zuk? Bai zera! Zu beti izan zara «intelektualen» laguna edo euren artean ibilten alegiñak egiten dituzuna; zure «liburuak» beti jantzi izan dozuz gizon «progresisten» ikututxuekin; edo margolari izentatuaren marrazkiak, edo Meabe'ren olerkiren bat... Azken onena jartzen zendun «liburu» baten azalean, gitxi gora-bera (nik ez dodaz erderazkoak gogoratzen) au iñoan: «cierra los ojos y duerme, pestaña contra pestaña, no es buen español quien no hable las cuatro lenguas de España». Zelan ba zuri, lau izkuntzetan idazten dozun orri «guti» dakizunik esan? Gure antzekoak bai ezjakiñak, izkuntza bat edo bi dakiguzan gizajuok! Zugaz konparatu ezkero, gu ez gara ezer, ori argi dago; zu bai, lau aldeetatik!

Euskera dakigulakoan (latiñari gorrotoz-edo) gorputza, soiña, gogoa ta arimea zer diran be ez dakigu, baiña gauza batek arritu nau: gogoa arimearen zati bat dala zuk esateak. Ez nuan uste zulako «progresista» batek arimea ta olako utskeri edo sorginkerietan siñesten zendunik... ala txarto ulertu ete-dogu? Iru gizon ibilli giñan era batean irakurten, ulertzeko alegiñak egiten, baiña azkenean ez giñan izan «kapableak»... eta kontuz ibilli bearko!

Dana dala, zeozer bai argitu jakun: Or zear ei-dabil «gizon serio bat maskara pean (baturako «masbizaia» ez ete-litzake egokiago?). Hipocrates'en zina beti aoan erabilli arren, betetzen ez dauana. Baiña guk dakigunez, «Primus non nocere»'k eta zinak ez dauke zer ikusirik, baiña zu beti ain zorrotz eta jakintsu!

Arrazoia dozu, mendian saurituta legokena iltzen ixten dauana ez da osagillea ta gitxiago kristaua. Jakintsu batek baiña, ondo jakin bear ditu esku-artean edo aoan darabiltzazan gauzak. Baiña, orretarako, edo erbestera, edo espetxera joan bear... Obeto, nere ustez, apur baten itxarotea; laister urtengo dira «historia triste» aretako «personaje» batzuk eta eurak argituko dautsue burua... ez dira ba zure moduko «intelektual» aundiak espetxera sartuak izaten; zuek gerorako gorde bear. Ara sartzeko «zeozer» egin bear da, ez da naikoa huelgetan eta olako ekintzetan norperaren burua erakusten (baiña erakusten bakarrik) batzarretan agertzea... Ez, zulakoak ez dabe espetxera joan bear; kartzelara ezjakiñak, bulertsuak edo sekretoak gordetzen dakiazan medikoren bat edo olakoak joten dira, gizajoak!

Ezjakiña zu? Prejuizio burgesik eta lotsarik ez dozu sentitzen. Gogoratzen naiz, bein, Arantzazu'ko batzar baten egin zendunaz: Aita Zabala, baimena eskatu ondoren, erderazko idatz-lan bat irakurten asi zan. Zu zutundu ziñan, zelan ez? eta «Para oir hablar en castellano me hubiera quedado en Bilbao» esan zenduan eta lasai barriro jarri bere. Gu, ezjakiñok kolorez gorrituta, erdi arrituta. Baiña zulako jakintsuak bere bear dira Euskaltzaindian, eta gaiñera euskeraren etorkizunerako gidaritzat!

Etxean ez dozula euskerarik egiten diñoenak bere, esames zabaltzaille ezjakiñak dira; zu lasai! Orreik, errizale «romantikoak» dituzu!

Beste gauza bat be argi dago: Ni ez noa Pelai Orozko'k diñoana egia dan ala ez ziñatzera, au da: erderaz idazten dabenak bere (adi bidez Baroja'k) euren euskal nortasuna erakusten dabela... Baiña euskeraz (?) idazten daben batzuk euren erdel-izana erakusten dabenik ezin ukatu. Zeuk euren artean.

Amaitzera noa, barriro bere parka eske! «Guti» dakizula? Zuk anitz eta ederki dakizu, bai orixe! (Ene! Orixe aitatu dogu) ta zure «eskribuetan» erabiltzen dituzuzan gaiak ez ditu edonork erabilten, erdi debekatuak izaten dira-ta... baiña ez zutzat. Zergaitik ete-da?

Gu lakoak beti gaizki pentzatzen! Parkatu ba, malheruski (h ta guti) baiña «serioski».

PIPER-ZIRI'REN ORDEZ «HIPOCRITAS'EK»

IZAN-IZENEN JAUBE

Sarri askotan yatorkuz eliztarrak Bizkai'ko euskal izen kristau baten billa, euren seme-alabatxoak bateatzekoan. Beste batzuek ba'leiteke beste izen asko ezagutzea. Nik, neure ustez erabilli leitekezan izen batzuk emen agertzea egokia deritzat.

Andrazkoentzako gizonezkoentzat baiño izen asko be geiago ditugu Bizkai'an. Emen izenak ipintean oartxo bat: cndo izango litzake izenaren urrengo Andra Mari edo deun orren eleiz ta baselizatxuak nun dagozan ipintea.

1) *Emen dozuz andrazkoentzako euskal izen batzuk: Begoñe Miren, Begoña'n; Mamaia M., Elorrio'n; Andikone M., Berriz'en; Erdotza M., Markiña'n; Antxiñe M., Ondarru, Lekeitio, Gernika ta Orduña'n; Bideta M., Mendata'n; Parisi M., Busturi'n; Almike M., Bermeo'n; Gainko M., Arrieta'n; Agirre M., Gorliz'en; Ziortza M., Zenarruza'n; Goiuri M., Yurreta'n; Gorbea edo Gorbeia M., Zeanuri'n; Isasi M., Gordexola'n; Ondiz M., Leyoa'n; Akaitze M., Begoña'ko Andra Mari'ren irudia itxaspean dagoan inguruko ugartea Bakio'n; Urkiole M., Andone M., Abadiño'n; Gane M., Zeberio'n; Atxarte M., Abadiño'n; Erdoize M., Izurtza'n; Gatxete M., Elorrio'n; beste lau izen luze ere ba-ditugu Bizkai'an: Idoibalzaga M., Errigoiti'n; Udiarraga M., Ugao'n; Uribarri M., Durango'n; eta Jazokun One M., Karrantza'n. Luzetxoak eta gogortxoak izen orreik, baiña erriak laburtu ta leunduko ditu, Idoi, Udi, Uri, One deituaz.*

Eta emen beste oartxo bat: izen guztion bigarren tokian Miren edo Andone ezartzea ondo litzake. Erdaldunak Andra Mari ta deun orrein izenak abizenak dirala uste izan ez dagien.

2) *Orra gizonezkoentzako izen batzuk: Andima, Mungi aldeko antxiñako euskaldun ospetsu baten izena; Gaztelugatx Ion, Bakio'n; Bizkargi Gurutz, Etxano'n; Urkiol Andoni, Abadiño'n; Matxin, Mungi'ko itsas-gizon ospetsu ta martiri baten izena. Berriotxoa Balendin, Elorrio'ko martiri zorunduna. Izen onek ere luze ta gogortxua dirudi, baiña Berrio bakarrik deitu ezkero laburtu egiten da. Gaiñera, Berrio Elorrio'ko auzune baten izena da, ta Berriotxoa'ren aurretikoak jatorriz auzune orretakoak ziran; Igotz, Aulestia aldeko baselizatxo bat daben mendiaren izena da, ta Bizkai'an mutiltxo batzuk izen orregaz bataiatuak izan dira; Oiz Kistobal, Munitibar'en; Kolitza Sebasten, Balmaseda'n; Beraskola Pantzeska, Gordexola'n; Berbiakez Kosma edo Damen, Atxerre Kepa, Ibarrangelua'n; Ereñozar edo Ereño Mikel, Ereño'n; Arretxiñaga edo Arretxi Mikel, Markiña'n; Izaro Pantzeska, Bermeo'n; Bekoin Mirena, Begoña'n. Guztiok dakigu Begoña'ko Andra Maria'ren eleiza dagoan tokiak «beko oiña» daroala izena. Eta ondo deritzagu Begoña'ko Andra Maria'ren omenez gizonezkoak ere Bekoin izena artuteari.*

Or dituzue nik une ontan gogoan ditudan euskal izen kristau batzuk. Bateon batek beste euskal izen batzuk ezagutzen ba'ditu, ondo litzake esatea. Euskal izenen billa dabiltzan euskaldun kristauak, izenak nundik artu ugariago izan dagien, baita euskal izendegia aberastutearren ere. Eleiz-seme izateko ez dogu etxe-kalte izan bear-eta.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

AMA

Seme bakoitzarentzat bere ama da, eder, garbi eta aundiena. Izan ere, ama batek zenbat izerdi, estuasun, lan, negar, neke ez ditu egin bere semeen onagaitik eskeiñiaz.

Bera da semearen lagun aundiena, ixiltasunean maitatzen du; lagun benetakoa. Semearen oker bat sentitzean, kolpe bat bezela da amaren biotzean.

Amaren begiak semea ikusten dute, amaren buruan semearen pentsamentua dabil, amaren biotzean semeagan maitasun neurrigabea gordetzen da.

Semea ardoaren indarpean moskortuta eroritzen ba'da, amak ez dio errietik egingo; ixil-ixilean gelako txoko batean, negarrez lasaituko du bere barrena. Semeak andregia artzen ba'du, biok bedeinkatuko ditu.

Beretzat biok, ama ta semea, bat dira. Semea espetxean sartzen dutenean, hospitaleko gela batean gaixorik arkintzen danean, gudaritzan etxetik urruti arkitzen ba'da, ama, an egongo da, pentzamentua beti semeakin josita ba'leuka bezelaxe.

Iñoiz, iñori semeagan biraorik entzuten ba'lioke, eztarria urratu artean karraxi egingo luke.

Semea iñoiz ilko ba'litz, ama barrutik eta berdin kanpotik, beltzez jantziko litzake:

Egun triste batean ordea, ama iltzean, seme batek nai ta naiez sentitu bear du beraren utsunea, amaren itzala beti izango du segika, beti atzetik, umil eta ixilik, ongi dagonean pozez eta gaizki arkitzean negarrez.

Maitasuna ez bai da aizea bezela beti igeska dabillena; iraunkorra eta sakona, amaren biotza bezelaxe.

R. ZAPIRAIN

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

C. O. U.: ZORITXARREZKO JAIOTZA!

Parkatu eidazue, irakasle guztiok; parkatu katedratiko eta Unibersidadeko jakintsu guztiak... baiña COU'ren jaiotza ez dot begi onagaz ikusten.

Bai; ikastaro barri bat jaio jaku: COU deritxona. Eta COU onen jaiotzak eztabaida asko sortu ditu. Eztabaidak?... jakiña!


Ez da asko gure COU asi dala, eta oraindik ez dakigu norantz joango geran. Ezin siñestekoa da gure COU'ren bizitza. Eta bururakizun edo «idea» bat emoteko, eredu batzuk esango dautsuedaz: COU'n ez dago libururik (bi edo iru izan ezik); «programak» ez dira oraindik ziur-ziur ezagutzen; azkenengo «examiñ» edo azterketea iñork ez daki zelan izango dan; galdetzen ba'dozu: «Ze irakasle izango dogu datorren orduan?» alan erantsunko dabe: «Ez dakigu; etorten dana»; askotan —goiz guztian— ordu batean bakarrik dogu ikasketa... ta beste askotan arratsaldeetan doguz; orain arte «letrak» ikasi dabezanak; bosgarren, seigarren eta PREU'ko «matematikak» ikasi bear dabez; batzuk euren ikastetxetik kanpora urteten dabe, eta beste batzuk ez; askok —beste biderik aukeratu eziñean— gai edo «asignatura» optatiboak utzi dabez eta beste batzuk artzera beartuak izan dira...

Olako gauzak ikustean... zelan gure COU txalotu? Guk, ikasleak, ez dogu ulertzen zelan egin lezaken olako aldakuntza urte batetik bestera.

Bai, askok esango dabe: «Baiña gaurko COU, PREU'gaz bekalduta askoz errezagoa da». Eta ori egia da. Baiña erraztasun onetan arrisko aundi bat ikusten dot: Unibersidadea.

Urte bat beteteko, egiz, ez dala oso zailla izango irudi jat. Baiña urte bat galtzen ba'dogu... zer jazoko jaku Unibersidadean? Zer lortuko dogu Unibersidade'ra joaten ba'gara bate prestaera edo «preparazio» barik?... EZ DAKIT!

Eta jakin bearrezkoa dozue, COU «Curso de Orientación Universitaria» dala.



Orregaitik COU'ren jaiotza ez jat asko atsegin.

Bai; «teoria» politak, baiña egite bestelakoak. Beti esaten doguna; ESATEA OSO ERREZA DALA!

Bai, adizkideak, COU'ren jaiotza aurreratu egin da. Eta orain, «inkubadora» ren bearra du. Eta lenengo COU au osatzen dan bitartean, gu, ikasle guztiak «konejillos de Indias» lez gabiltza.

COU'ren gauz asko ez doguz argi ikusten. Eta argi ikusteko, asko itxon bearko dogula uste dot.

Euskaldunak, berez, argi garanai eskerrak!; bestela, COU deritxona, ez zan ain erreza izango.

Eta bukatzeko, galdera bat: Zelan du izena, COU (Curso de Orientación Universitaria) ala CDU (CURSO DE DESORIENTACION UNIVERSITARIA) Zeuen iritziz utziten dogu.

EZKAURIATZA'TAR X.

NUNDIK NORAKOA XIII

Etxeko ardi baltza...

Len aipatutako Arteaga'ko jazokunak eta beste arrazoi batzuek sendoro bultzatu ninduen euskera ikastera. Labea gerturik neukan, sua piztu bearrekoa zan. Eta piztu egin eusten inguruko lagunak eta jazokunak. Arrabarrak, bizkaitarrak eta giputzak batera gengozan Gazteiz'en. Giputzak euren buruen jaube. Bizkaitar euskaldun osoak ere bai. Eta arabarrak eta bizkaitar kolonizatuak edozein aldikeriren seme.

Bein batean asi giñan eztabaidan gure arteko aldra batean. Arabarrak su ta gar (su ta pozoia) gure Erriaren aurka. Bizkaitar batzuk, arei arrazoia emonaz eta beste bizkaitar euskaldunak, oraindik baserri-kutsu larregiz, ixillik eta kikilduta. Arein lelokeriak eta astakeriak! Sutu egin nintzan ni, lagunen oztazuna ikusita ta erabakia artu neban bein da betiko, bertatik asiko nintzala euskerea ikasten, eurok egiten ez ebena, neuk neure aldetik egiteko, al neban giñoan.

Etorri ziran Gabon-jaiak eta betiko oporraldia emon euskuen. Zirt eta zart: asi nintzan Bilbo'n dendarik denda euskal gramatika baten billa. Nik lagun bati Zamarripa'rena ikusi neutson eta axe bear zala, bearrezkoa zalakoan, denda batean eta bestean ezetz, ez eukela alakorik. Verdes'enean esan eusten a amaituta, salduta, egoala guztiz. Alabaiña, esan eusten, auxe daukagu salgai. Ta Nikolas Cortes Manterola'ren «Método autodidáctico» eskeiñi eusten. Besterik ezean axe erosi ta sakeleratu neban. Etxera bidez, bultzian bertan asi nintzan irakurtzen. Etxeratu ta lenengo orriak iruntsi ta lenengo ariketak egiten saiatu ere bai.

Gabonak igaro ziran era barriro gure kabira, apaizgai-etxera. Gramatika aldean neroala, neu ere abiatu nintzan lengo nere lekura.

Baiña toki a ez zan geiago izan neretzako lenago bezela atsegintsu ta zabala. Euskeragaz asi nintzanetik ona nere gurutz-bidea. Borreru ta guzti, jakiña. Ta eskuak garbitu zituen Pilatos makal batzuek ere bai.

Guzti onen barri, baiña, urrengokoan jakiñerazoko dautsuet astiro ta garbiro. Bitartean, neu neure erriaren erraietarañio sartu bearrez aleginka ta indarka. Ta negar-zotinka.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

(7'gnetik)

ZERGATIK?—Ezezaguna zaitan Olazar'ta Martiñ idazleak «AGUR»'en, Dagonillak 30'gn. onela dio: «Gu euskaldunok ez dot uste antzerkiak egiten ain zaleak geranik. Ospetsuak doguz gure egunetan Larzabal, Labayen, UXOLA ta abar».

Egun berean eta Bilbo'ko beste amabosterako batean nere errikide dan Iraeta gazteak: «Ibon Sarasolak euskal literaturaz idatzitako liburuan, idazlarien artean ez dugu aipatua ikusi Estanis Urruzola tolosar antzerkilari trebea. Jakin nahi genuke zergatik».

Batzuek aaztuta, besteak oroi. Zergatik? «Pueblo soberanoak zerebralki eta justizialki konklusioak atera ditzala».

Neri ez dagokit besterik idazle biei nere eskerrak ematea baiño.

ERRATZA AR.—Z. A.'k Irailla'k 5'gko. editorialean: «Ez du gaia uskeritzen euskera errazak. Ezta sakontzen ere euskera zaillak. Eztu euskera edertzen eta batutzen erdal itz eta joskeraz beterik dagoen euskerak ere».

Eta irakurleengandik onela aditzen omen dute: «Idatzi eiguzute euskera errezagoan. Ez dugu alakoren eta olakoren euskerarik ulertzen».

Bikainki! Egizute bada zerbait leiotik-leiora arteko atso berritsukerietan geldi ez ditezen itzok. Erratza ar eta asi etxetik bazterrak garbitzen... nor-nai dago bearrean-eta.

UXOLA

KONTU KONTARI

II.-USTEAK...USTEL?

Udabarria, urtearen aro bat da; lautik batekoa. Urtero etorten yaku, ta urtero jarduten gara bere edertasunak azalduaz, zurikeriak esanaz eta olerkiak bere aintzaz biribilduaz.

Aurten be alan izango zala uste genduan, baiña... zorioneko baiña! usteak ustel urten euskun. Eta ustea sarritan ustel ba'da, aurtengo udabarria be ustel izan da. Aspaldion ez gabiltz ondo usteekaz.

Illargiarekin, beste ainbeste jazo yaku. Illargia baiño gauza ederragorik! Talo-palea bezin zabal ta gorrizkeago mendi ganean azaltzean, bai gauza ikusgarria! Batez be maitaleentzat bizigarri ta maitagarri! Amaikatxu gazteren biotzak zuzpertu ta amabiren begi-niñiak argitu izan dauz gabeko orduetan!

Axe gauza ederra! Axe bikaintasuna! Nor egon leitekean bertan! Eta bertan egon ez arren be, lillurapenez berotuta, zenbat ames gozo! an, dandana txukun dalakoan, guzti-guztia leun eta kilikagarri dalakoan! Alan uste izan dogu, ta orra barriro be, usteak ustel.

Igazi diran azken urteotan, Ipar Amerikar eta Errusitarrek, oiñak edo tresnak jarri izan ditue gure amesetako laztanaren bizkar ganean. Ta... zer aurkitu dabie? Lurralde latza ta gogorra, basamortu utsa, iru arrako autsa, lezak eta trokak, arri igarrak, arnasarik artu eziña, zutik egon eziña... Maitasunerako girorik txikiena bez. Barriz, «negarrezko aran onetara» itzuli al izan diranean... danok pozik!, areik eta gu. Areik pozago, arrisku itzaletik aldendu ziralako.

Geure izkuntzari buruz be, alako zerbait ete darabilgun kezkati naiz.

Illargiak, bere argia edo opaltzen dauskun argia, bere-berea dabelakoan gabiltz. Eta ez izan ori orlan; illargiak damoskun argia ez da berea, eguzkiarena baizik. Pelota tokian aurrez dogun ormeak pelotea itzultzen dauan lez itzultzen dausku illargiak eguzkiaren argia.

Askotxu gara, euskerea soillik, norberana dalakoan gabiltzanak; ustez, urliarena edo berendiarena dalakoan. Eta ez da ori orlan. Euskerea bereberea da, Erriarena. Erriaren bide zabaletik urteten ba'gara, amildegira eroango gaituan basabide irriztagarrian sartu gindekez eta, kontuz! arretaz ibilli bearra dogu, ez itsumustuan.

Jarraitu daigun ba, bide ziurretik, usteren batek ustel urten ez dagigun.

ABELETXE

ALKAR-IZKETAN XI

ERESI-ZALETASUNA

—Sarritan buru-austen ibilten nok, Manu, gaur «modan» dagozan eresiak diralata. Euren gatz, pipermin ta guzti, zuzenzaletasuna agertzeko egoki yirudiek, baiña eusko-gogoarentzat kaltegarri be izan leitekezala uste yoat.

—Neuk be ori ez ñeukek ukatuko. Eresiak gure izakeran eragipen andia yok. Bakik zegaitik? Gure bizia giroaren txirrinka gaiñean lez yabik, eta gaiñean yoanari asko eragiten yautsok. Gorputz eta gogo. Eresi alayak gure gorputz eta gogoa poztu egiten yozak, eresi itunak moteldu. Au egi garbia dok. Izakera ituna dabenari abesti, eresi, alairik ez yakok atsegin izaten, eta izakera alaikoari itunik ez. Ori bakoitxaren izakerea ezagutzeko bide ona dok, eta bildur barik egitzat artu geinkek esakun au: «Ze eresi atsegin yakan esan egidak eta nor azan esango daustat».

—Ba ori egunoro ikusten yoguk. Nor dok txistua entzutean poztuten ez danik? Nor eresi itunak entzutean ituntzen ez danik? Eta nor gaur egunean entzuten diran abestiak entzunda (gogoz entzuten diranean) euren gorputzkera, egoera ta kiñuetan sentzuna galduta lez agertzen ez danik. Gaurko biurrikeri ta zorakeri asko, ez ete dozak entzuten diran eresietan zusterra dabenak?

—Ba, gaur besterik ez dok entzuten irrati ta urrutikuskiñez. Orixe dok naikoa gure euskal-izakerea apurka-apurka galdu eragiteko. Egia dok, aldi bakoitzak bere erak agertzen yoazala, baiña gaur egunean entzuten diran erbeste usaiñeko ainbeste abestigaz, geurea dana ito egin bear yauskuek.

—Neu be orren bildurrez egoten nok. Atzerriko eresiak bertakotu ala euskelusaiña emoten ainbat gazte alegintzen dozak, baiña etxakiat geurea dana baztertu barik ori zelan egin leiken. Gaurko urioleari esia ipintea ez dok erreza-eta.

—Bertokoari eutsiteko be taldeak ba-yagozak, eta ori pozgarri ta onuragarri izango dokala esan bearrik be ez, baiña beti be egoki izango dok geure abesti ta eresiak biotzean ondo zustraituta eukitea, geure izatea ta antza galdu ez yaguzan.

—Zer edo zer egin bearko dok, euskeldunen ezaugarri bakarra arri astunak yaso, ukabilkadak emon eta tripakadak egiten bakarrik nagusi agertzea gura ezpayoguk.

—Gaur, yakintzea edo oin esaten daben «kulturea» miñean asko erabilten dok naiz ta gai orretan azkenengo maillan gelditzeko arriskuan egon.

—Pelotoyari ostikada batzuk emoten yakitea baiño, buru lantza, aziera ta eziera yatorra bearrekoagoak dozak izan be.

—Izparringiak irakurri ezkero ez yirudik olan danik, orririk erdiek yolasentzat izaten yoezek eta dirua be ortik yabik bai eta ez dok arritzeko.


—Neurriz iñok zer esanik ez lleukek izango, ba gauzak goikoz bera artu bearrik ez yagok.

—Untzea ortxe yagok ba, Gauza bakoitzari zor yakon garrantzia emotea eta euskal-eresiari berea, lengo ona ta oingo ona berezi barik.

—Gaurko naikoa izango dok eta agur.

—Agur ba datorren asterarte.

URIGOITIA



TXORI BATEN GOGOETAK

(Jarraipena) Agiñalde'tik

—Yauna, Yauna, biar mezakotuko naz —azkenean oiu garratz bat yaulki yakon— eta gauza bakar bat eskatuko dautzut, besterik ez. Urte askotarako gorde egiztazu ama... Nik zainduko dot eta eskuen itsusitasuna bai ta soiñaren makuztasuna kenduko yakoz... Biar neure eguna da... ez egiztasu ori ukatu...!

Gauaren magalean argizko asperanak bai'liran, izarrek Yoseba'ren malkoeri dizdir zurbillak erauzi eutseezan, eta noizbait abade gaztearen oiñazea gauaren gentza-pean baretzen asi yakon.

Urrengo egunean Yoseba mezakotu zan. Bere gogoarentzat benetako jai aundia; egundo aaztuko ez litzaioken eguna. Biotz-biotzez amaren osasunerako eskatu eban, eta amak seme kutuna abade on bat izan eiten. Azkenean esku-mosuketa gertatu zan. Andere'ri txanda eldu yakonean, malkoz beteriko begiekaz semegana urreratu zan, eta doi-doi bere kutunaren eskua mun egiñik, iñolako bultz nausigaitzaz eraginda, Yoseba'k bere amaren esku gorriztak, itsusiak, berenetan artu ta mosu luze bana emon eutsen.

Andik laister, Yoseba Bilbo'ko auzo txiro baten parrokira izendatua izan zan, eta amarekin auzoko bizitegi txiki, arrunt batera aldatu zan. Abade gaztea zorionez gaiñezka ebillen, bere amets biziena, abadetza txiroen artean irauntzea, betetzen zalako. Yoseba'rentzat betetasun osoko biziera bat asi zan, gizasemeen zitalkeri ta aunditasunean murgiltzen zalarik, eta ez-arian ez-arian bere ausokideak gero ta maiteago zituan, bai ta eurek bera be. Etengabeko lanari atxikia, gauetan zearo nekaturik oean amiltzen zan, eta sarri berak ezin zuzentzen egikezan zoritxarrek, yasartzen eben lo atsedengarria uxatuaz.

Beiñola, lantegi bateko aundiki batek langille batzueri zitalkeri bat egin eutsen. Au yakiñik, Yoseba arengana yoan zan eta arrenka eskatu eutson bidegabekeria zuzendu egiala, baiñan gizon arek ez eutson yaramonik egin. Azkenean nagusiak gelatik urten eitela agindu eutson, eta Yoseba'k orduan barruko naigabeak suturik, urten baiño leen egi gordin batzuk aurpegira bota eutsozan.

Bizpairu egun geroago, Yoseba'k gotzaindegira yoateko mezua artu eban. Emen ordu bi itxaron ondoren, idaztegi batera sartu ta gotzaiñaren aurrean aurkitu zan. Onek agiraka egin eutson, aundikiarekin izandako eztabaidari buruz. Yoseba'k entzuten zituan zeatzgabekeriak argitu edo zuzendu nai zituan bakoitzean, goitzaiñak ixiltzeko agintzen eutson. Azkenean, zelan ez ekiela, Yoseba kalean aurkitu zan. Etxera eldu ala, luma bat artu ta gotzaiñari eskutitz bat biali eutson gertatuaren egi zeatzak iñotsola.

Egun batzuk igarorik, gure erriko abade zaarra il zan, eta ereti au ustiatuaz, Yoseba bialdua izan zan aren utsunea betetzera, beste parroki txikiagorik ezean. Axe zan abade gazteari bizitzak egindako leenengo zauri bizia, ta olan egun batez, Yoseba ta bere ama gure errira eldu ziran, Abadene'ko etxe zaarra ta ixiltsua bizitegitzat artzen ebela. Baiñan zigortzat aukeratua izan zana, onurakorra billakatu zan, eta luzaro gabe gure errian Yoseba'k gogo-pake ta barruko oreka barriz irabazi ebazan, eta berak gure erria aunitz maite ba'eban, gutarrek bene-benetan Abadene'ko apaiz gaztea maite eben.

Laister ikusi ziran Yoseba'ren ekintzarako doaiak. Sendi-arteko ta sendibarruko pakea bere maitasun eta zintzotasunaz ezartzen asi zan; gaztedia batu eban eta euren lagun miñena ta aolkulari argiena gertatu zan.

Umeentzat arestian ikastola bat antolatu dau Abadene'peko bizitokian, eta alegiñak egiten dauz gure erriko ta Atxandi'ko dirudunen artean, ikastolako andereiño bien lan-sariak eta beste eralguntzak jasoteko, gurasoen illerokoak ez bait-dira guztitarako elduten. Entzutekoa da benetan gure umeek darabilten euskera eresintsu ta garbia; nerau sarri Agiñalde'ko atadi-ondoan ao-zabalik geratzen naz etxeko aurren euskera polita entzutean, eta irudipen utsa izango da noski, baiñan Yontxu ta besteen euskera entzun eta gero, txintak obeak urteten yataz.

Orain, gure Yoseba'ren elburua, Atxandi'n langintzarako ikastola bat sortzea da. Bere ustez, asmo au onura aundikoa litzaieke gure barrutiko gazteeri, ez bakarrik lan-mail obeagoak Atxandi'n lortzeko, bai ta Bilbo'n bere. Baiñan asmo onen korapilloa ta buruaustea diruan dago; ziur naz ordea gure abade gazteak nolabait auzi au nausituko dauela ta luzaro barik Atxandi'ko lan-ikastola sortzen ikusiko dogu.

Dirua...! ona emen Abadene'tarren buru-austea, edo obeto esateko Yoseba'ren pakea... Bai, pakea. Abadene'n sartzen dan dirua ez dau egunetik gora irauntzen, zuzen-zuzen unerik galtzeke beartsuren baten etxera doa, edo-ta gure ikastolaren zorrak arintzeko bidea artzen dau. Asieran Andere'k semeari akar egiten eutson bere esku-zabaltasuna ikusirik, baiñan dana alperrik, dirua etxean sartu ala urteten zan. Orain argi dakus berak bein eskaturikoa, ots: bere semea abade on bat izan eitela betetzen dala, ta biotz-sakonenean iñolako poza oartzen dau.

Abadene'ko diru-kutxa lapiko zaar bat da. Emen sartzen dira txanponak eta txartelak, baiñan geienetan azpikoa ozta-ozta ukuturik, bere sama zabaletik egan egiten dabe. Abadene'ko etxekoandreak lapikoagana txin batzuen billa yoanda yanari apur bat erostearren, ez dau ezkurrik be aurkitzen. Orduan semeagana biurtzen da, burua alde batetik bestera astinduaz, euren kinka larria adiarazi naiaz. Yoseba'k irri-par batez darantzuio, ta atxur bat artuta baratzera doa laister agertzeko aza batekin edo lursagarren eskukada dakarkiola. Andere'k orduan, bere semearen aurpegiari santutasunaren alako zerbait dariola, deritxo. Askotan Abadene'koek ixtillu gorriak ikusten dabez, baiñan ez da ezer euren barruko pakea ausi daikeoenik.

Orain, Andere'n beste semeek bizi-mail onak lortu dabezenez, amari asko laguntzen dautsoe alako diruketa bialduaz, baiñan onek be lapikoaren samatik tximista bezela alde egiten dau, urkoaren sakelaren txera epela billatu naiean.

(Jarraitzeko) AGIÑALDE'KO TXEPETXA

ESKOLA KATOLIKOAK

Aita Santuak itz garrantzitsuak esan ebazan oraintzu Akademia Katoliko bateko zuzendariai itz egitean. Paulo VI'aren irakatsi onek garrantzi aundia dau guretzat be. Gaur egunean eskola katolikoak elburrurik, zeregiñik ete daben diñoe katoliko askok. Ofizialki jarrita dagozan erri-eskolak erreztasun aundiak emoten ei dabez danentzat.

Bigarren Batikano Batzarraren itzak gogoratu dagiguzan indar aundia bait dauke katolikoontzat. «Eskola katolikoan agertzen da bereziki Eliza irakaskintza-arlona.

Eskola katolikoak enparauak lez gaztearen ezkuntza dau elburu; baiña badau bere bereiztasuna: azkatasun eta karidadez betetako ebanjelio-kutsua iragarri ta gazteai lagundu nortasuna egiten diarduen bitartean bateoak eurekan egin dauan gizon barria geitu dagien».

«Orregaitik —darrai Batzarrak— eskola katolikoak Jainko-Erriari bere zabalkundean lagunduz eta Elizaren eta gizonen tarteko alkar-izketaren bideizanaz, gaur be garrantzi aundia dau.»

Ona laburki ta itz gitxitan Elizaren pentsaera eskola katolikoari buruz. Eskolan erlejiñoa ez irakastea okerreko bidea artzea da. Asmo onik be ez dau agertzen. Orregaitik Elizak txalotu egiten ditu ezkuntza onaren bidez umeetan eta gazteetan erlejiñoa irakasten dabenak. Eskolak bere katolikotasuna eukitea ez da jakintza iristeko eragozpen, bai ostera laguntza.

Umetan erlejiñoa ez dala irakatsi bear, umeak eurek aukeratuko dabela asitxoagoak diranean zein bide artu... onelako tentelkeriak zabaltzen diardue Jainko-ukatzailleak. Ez gaitezen jausi euren sareetan. Eskola katolikoak bear doguz gure errian. Ikastolak jarri ziranean poz aundia izan genduan. Garaipen aundia zan gure izkuntzarentzat. Euskeraz irakatsi gure umeai jakintza. Euskeraren bidez egin ezkuntza gure umeen artean. Baiña ta bitartean gure ikastoletatik erlejiñoa uxatzen ba'dogu zer?

GOIRIA


BASERRIA

BASERRITARRA TA BASERRITARREN ADISKIDEAK.—Baserritarrak alkartzeko modurik ez dagoala zenbat bidar entzun dogun! Baiña au, ez dala egia ikusten dogu, geroago-ta alkarte geiago ikusten doguz-ta, alde batetik gure errian baserri asko utzik geratzen dirala, benetan mingarria da. Baserria uziten daben gizonak euren arrazoiak daukazela zer ezanik ez dago; lur gitxi dauken baserritarrak aurrera ezin dabe iraun, baserritarren utsunea geroago ta geiago ta aundiagoa da, ta baserriaren egoerak alan jarraiturik denpora gitxi barru izugarrizko arazoa sortuko dau, batez bere kaletarren artean.

Baserritarren lagunak deritxon alkarteak argi erakutsi nai dau, lur gitxi euki arren alkartzen ba'dira talde baten baserri indartsua egindo dabela, ta au aurrera eroateko bakarka beste neke ez dabela izango, ikusiko zenduen lez, irakurle geienok, Bilbo'ko Baserri Azokan.

Erakusketa onetako barriak emon euskuezen Olaizola ta Egileor jaunak. Lenengo erakutsi euskuen abereak azke eukiteko korta bat ta ango zeregiñak «mekanika» bidez zelan egin. Onen barri ez noa zeatz emoten, lar luzetu ez naiten. Lenengo ta bein, au okelako ganaduetzat zan, kortearen erdian aska biribil bat euken, an, janaria aska gustira zabaltzeko, tramankulo bat egoan, ta batera, siloetatik «tolba» batzun bidez etortzen zan janaria, onek gizonari neke asko kentzen dautsala ikusi genduan, ta patentea, «tramankulo» orrena, Bizkai'koa zan.

Onen ondoren, Bizkai'ko baillara bakoitzean baserritarren alkarte bat sortzeko asmoa eukela esan euskuen, ta onetarako lenego pausoa sei baserritarregaz egin leikela erakutsi eben, gero alkarte ori batzorde aundiagoan osotu daiten. Alkarte onen oiñarriak be azaldu ebezen, iru zatitan lan egingo leuke, bakoitzak bere bidetik, bik esne arloa beste bik okelarako abereen arduradun ta beste biak, landaren ta soloen langintzan. Agertu euskuen baita, lantzean bein iru gauzetatik batak bere utsunea eukiko ba'leu, alkarte onek errez eutsiko leuskiola utsune oni, ba orretarako daukaz beste urtera biak, au da, okelea merketzen ba'da, esnearen eta landaren bidez eutsi. Ostera baserritar batek, bakarrik dagoala, oidalango utsunea izaten dau okeleak berantza egiten ba'dau, onetan ba'diardu beintzat, ta bardin jazoten da esne ta landarakaz bere. Olan baserritarren egoerea obetu leike ekonomi alderditik, ta batera, bere bizitzea sendotu.



Esnea ozkirrituteko ta «plastikozko» zorroetan sartutzeko

Esnea, kalera artez zelan saldu leiken erakutsi euskuen, ta kaletarrantzat esne-etxean bidez artzen dabena baiño esne obea ta egokia, ta alkartearentzat ekonomi aldetik zelango indarra izango litzaken au. Esne-etxeak baiño bi bidar geiago irabaziko leukie. Onetzaz baserritarren lagunak 15'ero argitaratzen daben izparringian aurkituko dozu, zeaztasun geiago, nun aurkitu bera? «Bizkai'ko Aurrezkikutxa»'k (Caja de Ahorros Vizcaina) daukezan etxeetan.

Landara bero-toki egoki ta sendoa be erakutsi eusken, ortuariak aurretu ta bere sasoitik kanpora lortzekoa. Au lantegian lan egin arren errez aurrera eroatekoa da; euri naiz illun izan bardin lan egin leike, ta emen lortu leikez: lekak, idarrak, letxugak, tomate ta abar.

Beste alde batetik. Baserritar! Iñoiz gogoratu izan jatzue zuen landarentzako ura batzea; urik ez dagon aldirako? Ba au lortzea be oso erreza dala ikusi genduan, ezer eztalakoan zure landarari mesede aundia egingo dautsa. Kontuan artu au; minutuko 8 litro uregaz 21 orduan 10 m. kubiku batu leikez plastikozko ontzi aundi merke baten. Gure etxe ondoko errekatxuei onurea ateraten ikasi bear dogu.

Izugarrizko lana darabille «Baserriaren Adiskideak» ta uste dogu baillara bakoitzean egiteko asmoan dauken erakusketea laister asiko dala bere igaliak emoten. Aurrera ba baserritarra, zure baserriaren egoerea obetuten ba'dozu ez dabe zure seme-alabak lantegira iges egingo.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

BIZKAI'KO BASERRI AZOKEA.—*Bizkai'ko Aurrezki Kutxa'ren babesean, Urril onen 9'an asi ta 17'rarte, gure baserriaren zaletasunak igituta, berari eutsi-azoteko neurri guztiak artu bearrean gagozala konturatu oi garan guztiok, benetan aste gogoangarri bat izan dogu.*

Gure baserriateko esku-lanak, barazkiak, igaliak ta landarak batetik; berein oillar, kui, ardi, zaldi, abelgorri, txarri, baita Anboto'ko sai ta arranoak ere bestetik, begiztatu doguz; euskaldantza parebakoak eta kirol-neurketa adoretsuak batera, alaikiro txastatuaz.

Lagunez gaiñezka dana. Gatxa deritzat idazlantxo baten zer guzti onen barria oparo ematea. Alan ta be, andi-andika izan arren, zertxobaiten ezaguera bereala damotsuet.

Ortuari ta igali Erakusketa bikañenetarikoa izan zan. Euskal baserri kutsu berezia edonun ikusi oi gendun. Azokaren beko alderdi zabalean, ezker-eskumara jarraituz, ta bizpairu bira toki guziari emonaz, baserri etekiñez beteriko saltokiak begiztatu genduzan; azaz, lore-azaz, intxaurretxaz, txistor-lukainkaz, odoloste-buskentzaz, saiezki, urdaiazpiko ta mueta oroetako txarrikiekaz oparo ornidituritakoak eurak. Berebat, ta illaran jarriak txakolin-bonbillatxoak gure baserrietako matsaren gogarapena, bein ta berriro emoten euskuela.

Irugarren egunean zizak ta guztiriko perretxikoak ere, toki berezia izan eben. Benetan ikusgarria galdakanotarrak, Urrutikoetxea jauna buru ebela, agertu euskuen ziza Erakusketea. Notintza beti arat-onat ta eten gabe, guztiritako sagar mueta, makatz-madari, ogei kilotik gorako kui-kalabazak, berakatzak txirikordan ta Gabon eta Toma deunaren Peri usaiña damoskuen oillar, oillasko, basoillar, aate, untxiak ta. a. pozarren begira ta begira ebillen.

Kaletarren baserri-zaletasuna biztu daiten, aulako euskal-baserri azokaren erakusketa bear-bearrekoa, urtero izatea, dogu. Lugintzarako bear diran tresnak, lanabes ugariak be etziran falta. Zengotita Etxearen landarak ere an egozan. Danori miragarria egiz!

Azokaren goi-aldean, bei, zekor, zezen, ardi, txarri, adarrak kizkur-kiribildurik apaindutako arito sendo mardulak, zaldiño politak, zaldi bizkor itxura ezin obea dunak, ta aitaturiko izkoak batez bere jatorri ta enda garbienetarikoak, ezbardiñak atan be, ots, Erribei-pirenaikak, Txarolesak, Frisonak, abar eta abar luze-zabaleran, ikaragarriak eurak, begi oroen pozgarri agertu oi ziran. Basurderik be ba-egoala iñoen, nik baiña ez neban batxu bat ere ikusi, edo antzik emon ez.

Bizkai'ko baserri erakusketa ontan, azoka kontua erabiltea zan batez bere guztien jomuga ta elburu beregizkoa. Ori dala-ta luzetu naz onetan; garaitiko abeslari, bertsolari ta kirolak arin-ariñean aitatuteko asmoaz. Lopategi, Arregi ta beste bertsolari jatorrak an ikusi genduzan, baita trikitilari, ta jotzaille azkarrak ere. Arria II, Arria III ta Orbegozo aizkolari trebeak txapeldun dan Astibia ta Yurrebaso'ren aurka jokatu eben, iru lenengoak garaille.


Aspaldi batetik Garai erritxoan gorderiko «Dantzari dantza» zarra, ta ospe aundiz lurbira zear doazen Galdakano'ko «Andra Mari»'renak be poztu ginduezan. Eres-soiñuekaz jarraituz, ereti ezin obea idoro eben arratsalde baten danak entzuteko asmoan bertaratutakoak. Txistu-soiñuaz asi ta alboka, trikiti, txalaparta, txirula, toberak, muxukitarra, dultzaiña-bolin gozo ta zorro-soiñu edo gaitagaz amaitu bide, dan-danok jotzaille jayoak bitarteko, entzun ziran-eta. Euskal abeslari ospetsuenak ere beste baten batu ziran.

Lantxo au burutzeko, idi-leiaketak, arrijasotzailleen indar-neurketak ta azkenez 35 txistulariren arrandia aipatu bearra dogu. Dana euskal kutsuz ornidua.

Baserria zaindu bearrean gagoz. An, kabi baten kokaturik lez, euskerearen iturri gardena idoro geinke. Ezin daikegu esan «baserria galdu oi ba'da, gaitz-erdi». Ez iñola ere. Bera galdu eskero, agur Euskerea ta Euskal-erria. Bereak egin dau; alegintzen ez ba'gara betiko egin be!

ARREGI'TAR JOSU

BILBO'RA



GURE
EGUN
ONEITAKO
EMAKUMEARI
BILBAO
BANKUAK

BERE
AUKERA
ONENAK

ESKEINTZEN
DAUTSOZ

BANCO DE BILBAO BB


onek emakumeen eskubideak onartzen ditu

Aprobado por el Banco de España.

ITZ - EUNDUAK

(XVIII)

Etxebarria'tar Juan Anjel



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Gizon jasanbera.—B: Karta-jokua.—D: Estua.—E: Izkia; Bokal; Konsonante; Leku orretan (a. a.).—G: Gizon ezkondua; Ogi-egillea.—I: Doai (a. a.); Urteetan sartua.—J: Miña baretu; Arrain mueta (a. a.).—K: Asperen-itza (a. a.); Konsonante; Konsonante; Andra-izenen amaierea.—L: Bizia amaitzea.—M: Eztanda egin (a. a.).-N: Olatu.

GOITIK BERA.—1: Zenbakia.—2: Israeldarrez Jainkoa.—3. Euskal abizena.—4: Izkia; Bokal; Konsonante; Bertan (a. a.).—5: Judegu; Ikutu (G).—6: Arantzadun landarea; Orkoa.—7: Txara; Urten (G).—8: Eme ez dana; Konsonante; Konsonante; Konsonanteak.—9: USA'ko laterria.—10: Min andia.—11: Firu.

XVII'aren agerpenak:

Zearretara = Goi.—Gorra.—Zelaitu.— II; D; Ñ; rO.—legrE; Adiña.—Aro; Gar.—Urrun; arutE.—oT; A; R; Ei.—Urkoien.—Saltu.—raO.

Goitik bera = Lau.—Lerro.—Zigortu.—Ge; R; U; Rs.—Golde; Nakar.—orA; Ola.—Iriña; Arito.—At; D; R; Eu.—Uriguen.—Oñati.—Are.

O L E R T I

Urte bi luzetan ixillik, egon bear izan dau. Ori diñozku bere sortzaille ta eusle jatorra dan Onaindia Aita'k; ara baiña, emen datorkigu barriz, ez aldizkari lez, eziñean; olerki bilduma eder baten itxuran, berreun orrialdetik gora dabezala, ta beti lez gure Erriko olerkari onenen lanegaz edertua.

Lenago Olerti a artzen zenduenak, zuzenean jasoko dozue, ukatzerik ez ba'dautsazue emoten baintzat, eta merkemerke: 100 laurlekotan. Lenago ezagutu ez edo jasoten ez zenduenok be, arin eskatzen ba'dautsazue, artuko dozue, zeuen begi-belerrien pozgarri.


Ta izpar eder au jaso ba'dogu be, ez da makalagoa bestea, ots: Datorren Azillaren 21'gnean, Kisto Erregearen igandez, urteroko OLERTI-eguna ospatuko da, goiz eta arratsalde, Meza, saribanaketa, bazkari, itzaldi ta abar. Ta an izango dirala uste dogu, bizi ba'dira, gure On Nemesio andia; Bordari; onek ekarten eban, kafearen ordez pimentoizko ura eraten ekian itxas-gizon a; gure bertsolari abots-zoliak; olerkariak eta onein artean Muniategi zintzoa, ta euskeraren edertasunean murgilduta egun zoragarria igarotera joaten diran beste guztiak eta geiago. Ea aurten eun bat kilo barbantzu jaten dautseguzan prailleeri.

AIXOLA'TAR DOMEKA

ASMAKETEA

(IX)

Garate'atar M. Luisa



ZER BEAR DOZUE ORAIN?

VIII'aren agerpena: **Atzerri garratz.**

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

AZKUE'REN IZTEGI AUNDIA

Barriz argitaldua ale bitan. Lengoak eta 5.000 itz geiago daroaz, Azkue jaunak arrezkero batuak.

HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE BIZCAYA

E. J. de Labayru'k idatzia. Zortzi ataletan barriz argitaldua. Lengoak eta egilleak galdutzat eukazanak bere ba'dakarz.

ANNALES DEL REYNO DE NAVARRA

Zortzi aletan au. Moret eta Aleson'ek idatzitakoa.

CANCIONERO POPULAR VASCO

Ale bitan. Azkue jaunaren bilduma ikusgarria; gizon orren lanari eskerrak, iñoiz galduko ez diran ainbat abesti ta doiñu.

REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS

Ogetabost ale. 1906'tik 1936'gn, urterarte Euskal-jakintzan gorenengo izan ziranen lan garrantzitsuak.

DICCIONARIO HISTORICO GEOGRAFICO DE PAIS VASCO

Ale bitan, 1802'gn. urtean REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA'K argitaldua. Gaur erdi galduta dagozan izenakaz aberastuta.

NOTICIA DE LAS COSAS MEMORABLES DE GUIPUZCOA

Iru aletan barriz argitaldua au bere; Gorosabel eta Etxegaray'k egiña.

TA BESTE IDAZ-LAN GARRANTZITSUAK

Eskatu «La Gran Enciclopedia Vasca» ra.

Apartado núm. 1.510. BILBAO

Erri - Erri - Erri - Erri -

Irun

AMA SHANTALEN.—Izenez deitzen diogun gure elizatxo zaarra leen ere amaikatan aitatu izan degu emen. «Ama Shantalen» oso maitea daukagu irundarrak eta danak lagundurik zarberritu bat eman zayo.

Ots bat oso barratu da errian, alegia, eliz au Irun kristautu aurretikoren baten gañean eta aren ordez gure asabak jasoa ote dan. Enintzake batere-batere arrituko alaxe izatea. Uste ortakoxia zen L. Urantzu J. ere, Irungo goraberaetan aiñ jakintsu ta sayatu izan zena. Aztarna billa ba omen dabill norbait. Poztuko giñake argibiderik arkituko baldiñ ba'liguke.

EUN-DA-LAU.—Urtedun amonatxo agurgarri bat daukagu Irune'n: Andre Erremiji Barandiaran. Urriaren lenengo egunez bete dizkigu eun-da-lau urteak. Ba-da pilla ederra! Ez du nor-naik izan oi.

Zorionak emendikantxe ete pixkor iraun dezala opa diogu guretartzat jotzen degun andretxo zintzo oni, jaiotzez ondarrabitarra da baño. Etzaigu iruitzen gutarra ez degunik, izan ere urte asko bait daramazki gure artian.

EUNERA BIDEAN.—Degu, baita ere, eta ez urruti gañera, Andre Anjela Galdurralde, Espartzaren alargun on-ona. Larogei-ta-amazazpi egin dizkigu eta osasunik bikañenen dirau.

Beretarrak maitetasunez inguratu zuten adiñ aundi ori bete zuan egunez eta ez da gutxiagorako ere. Guk ere emendikantxe agurtzen degu ta eun urte betetzen ikusi al izango degun itxaropen betean bizi gera. Alaxe gerta dedilla!!!

Zorion agurrik sutsuena jaso beza, bienbitartean, Andre Anjela maitagarriak.

«YOKO-GARBI».—Izendun bazkun berri bat sortua dute gure auzoerri Endaya'n. Zortzi urtetikan gorako mutikoentzat da bera. Gure euskal pelotarenganako zaletasuna erne nayak eragiñik sortua da eta oso arrera ona egin zayo.

Gurean ere pelotazaletasuna xuxpertu bearra ba-degu, zenbat errietan beintzat ostikoketak erabat baztartu bait du eskupelota, pelotalekuak utsik ikusten dira-ta. Endayarren asmoa emendikantxe txalotzen degu. Gurean ere jarraitzalleak izango al ditugu.

URRIAN OTE?—Ezetz ematen du. Ondartzak bete-betiak agiri bait dira, udaran bezelatsu. Izan ere aurtengo udazkena xamur eta goxo dijuakigu. Igarilari erruz ikusten da Ondarrabi, Ondarraitz. Donibane, Zibouru, Getari eta gañerako itsas ertzeetan. Ia udaldian gaudela dirudi. Goiztxo illuntzea izan ezik.

Alaxe iraun dezala, luzaro gañera, opa degu guztiok.

TRIKU

Oñati

Esan oi degun bezela, nola etorri ala joan, Mari Joan. Gure erriko jaiak ere ala joan dira. Luzeak ziruditen asieran; baña bukatu ziran; naikoa zarata ta izkanbillarekin. Iraillaren 26'an eman zitzaien asiera Aurtxoaren jaiekin. Auxe izan zan jairik alai ta paketsuena. Ainbat erritik etorri ziran aurtxo talde ederrak, euren txistu ta tuntunarekin. Edertasuna ta alaitasuna erri guzian zabaltzen zutela. Zenbat eta zenbatek eskuak txaloz berotu ta begiak malkoz bete zituzten. Bazkaltzeko garaian erriak poz-pozik artu zituzten baikotzak bere etxean bazkaltzeko. Arratsaldeko zazpiretan bukatu zan aurtxoen jaia, Gernika'ko Arbola eta Agur Jaunak abestuaz. Jai eraltzalleak txalo beroak irabazi zituzten ain ederki kopondu zituztelako, Esango nuke igaz baño zerbait euskel usai geixeago ere izan zala. Ederki orrelaxe. Ia urrengo urtean beste aurrerakaxo bat egiten dan Euskerari buruz.

Iragarri ziran bezela San Migel jaiak alaitasun onean bukatu dira. Naikoa zarata ta izkamilla ere bai zebat gazteren artean, zebateri gaueko lo ederra galdu eragiñaz ere bai. Beti zerbait ikusi edo ikasten da orrelako jaietan, eta guk ere zerbait ikasi degu oraingo ontan. Belarrietatik birikitaraño sartu diguta, GEURIA da ta GEURIA da abestia.

Baña aurtengo San Migel jaietan utsune aundi bat nabaitu degu gure erri ontan, pelota partidorik ez izatea. Euskalerrian dagoenik pelota lekurik zaarrenetakoa izanik. Gizaldi ontan etzan ezagutuko, San Migel jaietan Oñati, partido gabe ta aurten ez da izan pelota jairik. Entzun degu Udala, ibilli dala zerbaitetan; baña ez duala erreztasunik billatu ta utzi egin ziola pelota kontu orri. Baste ekarri dituzten milla tramakulo auntzen garberdiko eztularen truke ekarri al dituzte? Aurtengoa ala joan dalarik ere, urrengo urtean gure jaietan pelota.

Orain negua datorkigu eta neguak beste zeregin batzuek ekartzen dizkigu. Zenbait errietako Antzezlari taldeak asiko dira euren antzerki saioak gertatzen. Norbaitzuek pentzatuko ba'lute GARO USAIA, Karraskero jaunak GAROA'tik laburpenez antzerki biurtua ematea, bear dituzten ale danak duan izango dituzte. Eskatu zuzenbide onetara, Jausoro' tar Felipe. Franco Ibilbidea, 14-2.º OÑATI.

Kortabarria'tar Kruz, Ugartondo baserriko nagusia 72 urterekin il da, Goian Bego!

Anakabe'tar Eugenio, bere udazkeneko egonalditxoa egiten emen dago. Urte askotan etortzekoa izan zaitezala.

ERRI ZALE

Altzatzu

ERRIKO YAIAK

Berandu bada, be, noz edo noz egitea, iñoz ez egitea baiño obe.

Yoan dan illabetearen 13'tik 20'raiño, Altzatzu'ko yaiak izan dira. Zazpi egunez egin oi dabezan yaiotan, Altzatzuarrak bizkor ta alai ibilli oi dabiltz, yaiak bear dan lez ospatzeko.

Altzatzu'n, be, dala urte batzu, gazte-talde bat sortu zan, «Gure Etxea» deritxon Gaztetaldea. Eta ibilliz ta ibilliz, azkenez, eurten, lenengo agerraldia egin dau yai nagusietan; ta ederto egin gero.

19'an, domekea zala, «Umeen eguna» atondu eban. Ta egun ori, bear dan lez ta andizki yaitzeko, lau Probintzietako dantzari txikiak ta txistulari gaztetxoak deitu ebazan.

Ta bai dantzari txikietatik, bai txistulari gaztetxoetatik, moltzo polit-ikusgarriak, pozpozik ebiltzenak euren erantzukizuna eukeen yaunekaz.

Euskeraz, be, danean egin eben. Erri onetan ba dira urteak ta urteak, amarka, olan Euskerarik etzala entzuten.

Baiñan, egun orretan, dana izkuntza bitara egin eben; ta emen bizi garanok, kaleetan, gizartearen erdian ta yende guztien aurrean, Euskera entzuteko poza izan genduan, orain arte izan ez genduana.

Dirala dantzak, dirala abestiak, bai goizean, bai arratsaldean, dan - dana yendeei oso begikoa izan yaken; ta yende asko, baiña asko, egon zan ikusten ta entzuten ta esku-sarta beroz txaloak yoten ta yoten umetxoei ta gaztetxoei.

Au dana «Gure Etxea» gazte-taldeari zor yako; ta euskaldunon biotzetan itxaropen bizi ta sutsua sortu dausku.

Gazte buru argiak ta ikasiak ta langilleak ta eritxikoak ta yatorrak bai dira izan benetan.

Yendeek diñotena: «zazpi egunetako yaietan egin izan diran egimen guztien artean, ederrena, ikusgarriena, goresgarriena, 19'garren eguneko umeen ta gaztetxoen ekitaldia».

«Ta ospa emendik plazako beintxeak; ta ospa zarzuela-egilleak; ta ospa musika gudatarrak. Yendeei etxakez gustetan ta diru geiegi eroaten dabe. Ganera zazpi egun, egun geiegi dira yaietarako Altzatzu'n.»

Eurten, lenengo bider, emon dautsee euskal-giroa erriko yaiei, umetxoen ta gaztetxoen agerraldirako euskal-egun bat osoa antolatuz.

Altzatzuko sendiak eskeiñi ziran, umetxoei bazkaria emoteko; ta bazkari gozo, ugaria emon, be.

Ta orregatik ez da arritzeko, umetxoak zarata andiz erantzutea, euskeraz danon aurrean itanduten eutsen bertako irakasleari erantzun.

Eta umetxoen ta gaztetxoen erantzukizundun lez etorri ziran yaunei, «Gure Etxea» gaztediak, bere kontu, artu eban bazkaria emotea; baita bide-gastuak ta ganerakoak.

Zorionak milla ta milla bider «Gure Etxea» gaztediari ta urte askoz beti aurrera...

NEKAZARITZA TA LANGILLETZA

«AGUR»'en 20'garren zenbakiko lenengo orrialdea, mamitsu ta irakurgarri etorri yaku, baserrietaz yarduten dana.

Emen urrean dagon Etxarri-Aranaz'ko nekazariekaz, sarritan egon izan naz berbetan. Etxarri-Aranaz nekazarien euskal-erria da; baiñan bertan ez dago baserririk, bat edo bi besterik.

Ona nekazariek esan daustena bein edo bein baiño geiagotan: «Guk nekazaritza, landoletan langille izatea baiño, askoz geiago gura dogu. Nekazaritza askoz osasuntsuago ta garbiago ta paketsuago da. Orregatik gurago; eta langilletzara ba'goaz, ez da nekazaritza gustetan ez yakulako».

«Nekazariok daukagun alde txarra, auxe da: ziurtasunik eza, eskiertasunik eza denporean. Batzuetan euriteak, bestetzuetan legortea; ta askotan, ez euri ta ez eguzki ,baiñan bai lanparra, ta aldizka ta kukuka eguzkia; ta orduan gure solo-landarak erre-kiskaldurik geratuten dira.»

«Denporak, txarra danean ta maiz izaten oi da olan, ipinten dau gure nekazaritza ta bizitza koloka.»

«Ta orregatik yoan bear izaten dogu landoletara. Bestelan ez gintzake yoango.»

Agur, «AGUR»'en lagun guztioi. Yainkoak daizuela egun on.

YURRE'TAR YULEN

Arantzatzu

MIZMERUA

Loratuten adar eta orritartean bere burua eldubigunduta ikusi baiño lurra jo naiago izaten dauan igalialako gizon gogortxa, gure Errekagorri.

Piper-igurtzizko esaerak, zirikalari zorrotza, neskatillai begirakada txeratsuak eta zazpi luki zarren maltzurkeriak kolkoan ditun aitonaren ixil-ezkuakaz nator gaurko onetan.

Urteetako ego-aizeak eta urari gorroto izateak —zirindu egiten dau-ta— zimel-ikutua egin dautso, alan bere baiña, beti gazte ta mizke etxe-osteko makatzpean, ama Mari'ri (emazteari) gezurtxoren batzuk tolestu politean esan eta siñistu-arazoten erbarrenerako egarriak joten dauanean.

Illuntzeetan, saguzarrak euli-eizan asiko direnerako, mizmeru gordiña makatzpean buruari aska, ama Mari'ri zearka begiraka, gezurrezko txakurreztulen bidez beerako baimenaren eskea egiten.

Eta, «zoaz, gizontxo, Jaungoikoa'gaz, eta biurtu aingeruakaz» entzutean, Errekagorri errian, lau zankadan, ogei urteko mutillaren praketan.

Eztarria neurriz ezotu ta osasun-barritu ondoren, dizkerako bidean barriro. Eskumako makillatxu bidelaguna ezkerrera aldatzen dau, esku utsitua burura juso ta bosteko betean txapela kendu; zirriborrozko ditearen semearenak egin, eta izartegia eratu ebanari erren-otoika ekiñean, eta bidean izaten diran arriskorrak ostikoka bastertuz apal-ordu egokian etxeratu, makallo-buztanezko naiz lebatz-buruzko purrusalda gozoa emaztearen ondoxoan jatera.

Agur, aitete Errekagorri, Guztialdunak beste orrenbeste urtetan osasuna emon dagizula, eta ama Mari'k zaindu zagizala, maite-maiteki.

* * *

BILBO'tik.—Uri onetako Baserri-Azoka, Semana Grande guztiak baiño itzaltsuagoa, ikusgarria. Nongo «prensa bulegoa'tik» jasoten ditue baiña baserritar eta artzaiñak, bei, zekor eta txakurren erdeldizenak?

LANDAJUELA'TAR A.

Usansolo

EUSKERAZKO BATEOA.—Usansolo'n, astiro baiña lotu barik, euskerazko lanetan jarraitzen goaz. Lenengo, euskerazko mezea izan genduan; gero Kili-Kili'ren bitartez, gure izkuntza maitea, auzunetako aurtxoai agertu jaken idaz-lanetan. Onen ondoren Kristau-ikasbidea, ta orain alditxo bat dala, gure illen Eleizkizunak.

Bide onetan jarraituaz, igaro dan illean, erriko txadona kutunean, lenengozko euskal-bateoa izan gendun. Bere amatxoren besoetan zala, Andoni kristau barria, aurreratu jakun bateoa artzera, ordubatetako meza barruan.

Linaza'tar Emilio ta Orueetxebarria'tar Rosa Mari, umearen gurasoak, seme gazteen bigaz, baietza Eleiza Amari emoteko, ta seme zarren biak euren osaba Andoni'ri meza laguntzen, lauki edo ikusgai ederra egiten eben gure artean.

Euskal-meza abestiak beti poztu ba'gaituez be, egun aretan entzun ziranak gure txadonean lenengoz, gure belarriak laztandu euskuezan, soiñu ezti, barri areikaz. Ta au lortzeko, Andoni jaunak ipiñi ebana (Derio'ko Seminarioan ereserti irakasleak) ez zan izan atalik txikerrena.

Emendik aurrera, ba-dakizue Usansolo'ko euskaldun gurasoak: zuen aurtxoak euskeraz bateatzea gura ba'dozuez, besoak zabalik izango zaree onartuak, bai gure Eleiz-buruengandik, baita zuori laguntzeko gertuta gagozan erritar guztiongandik be.

Ta, lengo ariari elduaz, Emilio ta Rosa Mari'ren sendi guztiari, zorionak an izan giñan guztion izenean. Gure errian oiturak eta nortasunak iraungo dabe, zuen sendi-jatorra lakoak daukaguzan artean.

AGURRA.—Ta ez otza, gure biotz sakonetik urtendakoa baiño, Zenarruzabeitia'tar Isidor'i, Uztargi'ko jantokian egin geuntzana illonetan, bere zeregiñetara Benezuela'ra barriz joan baiño len.

Usansolo'n jaioa, baiña, bere itzak artuaz, biotzez urriñekoa, bere jaiotzako erria euskalnortasunean guztiz otzituta ikuziaz. Zein samintasun, bere mintzaldiari jarraituaz, bere biotzak artzen ebana, sendi-artekoei ikustaldia egitera elduten zanean, ta dana erdaldunduta ikustean.

Baiña orain urte bi inguru, Benezuela'tik etorri, ta orain dagoan zaletasunari begira, ez da iganderik Isidor ta Asun bere emazte alai ta zintzoa, Usansolo'ra ez datozenik, ordubatetako mezea entzutera, barriketa alditxo bat eginda gero etxera joateko. Ta gure pozgarritzat, euren laguntasuna emoteko beti gertu.

Ori dala-ta, len esan dodan lez, Uztargi'n alkartu giñan alkarri agur egiteko. An izan genduan aparia, Isidor eta Asun'en lepotik izan zan, euren gogoa zan alan egitea-ta. An izan giñanen oroimen-oparia, euren lengusu Sabiñ'ek mintzalditxo apal eta maitekor baten ezkañi eutsoen.

Gure artean laster izan daiguzala barriro be, adizkide zintzo oneik, gure Jaunari eskatzen dautsagu.

Ondo ibilli Isidor, ta ondo-etorria barriro Usansolo'ra!

ATXUTEGI'TAR JULENE

Zeanuri

ENPARANTZA.—*Gure irakurleai atsegin izateko, zertxo bat idatzi bear dogu. Batzuk eskerrak emonaz eta beste batzuk luzeago idazteko eskatuaz jatorkuz. Guztiai gure esker ona. Pozik jarraituko dogu ba, lan au egiten, jakintsua ez naiz baiña.*

Gaurko onetan, gure erriko plazara jo bear dogu. Nok ez daki bertoko jaiak diranean zelango soiñu otsa izaten dogun? Baiña urte guztian ez daukagu ezer. Ainbat urte dira Dionisio danbolinterua il jakula. Aspaldian fanderoa joten ikasteko gogoa dot, baiña noizko ikasi? Atzamar bigunak bear dira...

Bear ba'da irakurleren batek zer edo zer egin al izan legike. Baita geure plaza onek izan eban euskerazko izena, non dago? Eta noiz jarriko dabe bere tokian?

GORBEI'RA.—*Zenbateko jente mordoak igoten daben bertara, batez be uda-aldian! Euskalerri'ko mendiak guztiz pozgarriak dira.*

Gure alkartekoak be bertaratu giñan. Goizetik urten, bidean gora Sanburu, Lekanda eta oraindiño geiago. Bidean abestu: Egun sentiaren poza, Ikusi mendizaleak, Goazen mendirik mendi... eta gorago Kurutzea. Nekatuta bai, baiña pozik eldu giñan. Ondoren meza santua, mundu guztikoak, baiña batez be gure martiriak gogoan doguzala. Anitz esker, izerdiz baltzituta etorri ziñan Zamudio-aldeko apaizari. Ostera be Arrese Beitia'k Gorbei'ko kurutzeari jarritako olerki atal bat...

Araba ta Bizkaia, baita Gipuzkua
Besapean artu egizuz Kurutze santua
Gorde dagien fede zar antxiñakua
Beragaz baliatu ta salbatu mundua.

EZKONTZAK.—*Aldi oneitan emengoak diran asko eskondu jakuz. Guztien izenak toki asko bear, baiña gure zorionak biotzez guztiai.*

Beste erri batzuetara joan dira guztiak, bertora iñor be ez bizitera. Emen ez dogu lantegirik. Noiz izango ete dogu?

GORBEITARRA

Basauri

Antxiñan erri guztiko Goi-zandari, ta aldi ontan Elejalde auzunekoa dan Mikel deunaren omenez egiten diran jaiak, igarotako illaren azken aldian ospatu ziran. Gure naia ez ba'da be, barriro egiztatu al-izan dogu, antxiñako oitura sindo alaiak, geure-geureak, galduaz doazala.

Oraingo zarrenak, euren gaztaroko jaiak erri-miñez gogoratuten dabez. Areik ei-ziran jai ta jolasak, bene-benetakoak! Basauri'ko auzune guztietatik eta albo-errietatik notintza ikaragarria etorten ei-zan. Lapatza ta beste auzunetara be, or ospatuten ziran zelaietako bazkariak, dantza askatu ta abesti alaiekaz jolas-aldi edo erromeririk ederrenak izatera eldu arte. Aldi sindo areik baiña, edestira, kondairara igaro ziran.

Aldakuntza oneik era askotatik sortuak dira: atserritik Euskalerri'ratu dan notintzaren oitura ta jolaskerakatik geien bat, baita gure itxitasunakatik be. Ondoren, aldakuntza andia sortu da jatorrizkoen artean, batez bere gaztediaren izakeran. Izan leiteke baita, jaietarako antolatzen diran batzordeak, lenagokoak lako azkatasunik ez izatea.

Tamalgarria da benetan, Euskal-erri'an, erriko-jaietan, bertako kutsudun dantzarik ez eres-talderik izatea, euren trebetasunaren eta abestien indarrez zar eta gazteak pozgarri izateko eran. Mikel Deuna'ren auzotegi onek, erri-jakintzazko zerbait baiño geiago merezi dabela uste dogu, batez bere alderdi ortakoak, antziña erri-buru zan alderdi ortako basauritar jatorrak, urtean jai bat baiño ez dabela izaten jakitean. Eskerrak, bertan izan dogunik urtenena ta atsegingarriena aizkolari, arrijasotzaille eta soka-tirakan egin euskuezan erakusketak izan dirala; areik ziran indarra ta trebetasuna!

Aurretik be, auzokideei atsegin izan yaken beste zerbait, makaillao pil-pil leiaketea, berrogeitik gora bertara aurkeztuak, bata baiño bestea obea. Gaiñetiko jaiak ez dira aipatugarri.

Ibarra'tar Patxi'k, bere irakaskintza zuzenaren bitartez eleiz-barrutian atara daben txistulari gaztetxu taldeak benetan poztu gaitu. Aurrera Patxi azkar ori, ta zure gaztetxuok! Ea urrengo urterako eresbatz ugaria eginda ikusten dogun danok.

Laster, umetxoak eta gazteak, areto ederra ikusiko dabe eleizpean, Mikel deunaren eleizpean, jakiña. Bertan eziketarako euskaljakintza ta kirolak eroango dabez. Eta zelan ez! baita «Indartsu OAR» taldeko gazte kementsuak be, euren mendi-zaletasuna ta ostikoketak antolatzeko. Ta, noiz izango ete-dabez barriz lenagoko dantza taldeak? Aurrera Mikel deuneko ume ta gazteak! Auzotegi jator ori guztiz euskotu arte.

KOLDO

Bermeo

ITXU.—*Gure kaian argi barriak ipiñi dituzte, eta argiak oso biziak dira. Aunitz poztu gara bermiotarrok, batez bere arraintzaleok, neu aurretik naizela, arraintzalea naiz-ta.*

Baiña, zuzendu bear litzaken oker bat ikusten dut: kaiako eskillara batzuk argi gabe egotea. Eskillara oiek arraintzaleon Anaidiko sortaldean asi ta Gaztelupe'tik ezkerreranz burdiñezko eskillaretaraiñokoak ditugu... Izbera daukagunean oso gaizki ibiltzen gera itxas-ontzietara juten. Izgora daukagunean, molle barruko argiak argi egiten dauskun ezkero, eta eskillararik bear ez dogun ezkero, ez daukagu arriskurik. Nik neuk ez dakit laister, illunpean dagozan eskillara orreitan, argiak ipintzeko diran ala ez. Nik dakitena da, jausteko arriskuan jarraitzen dugula aldi luzean, eta jausi ta min egiñaz ta zaurituaz Osategira eroanak, entzunda daukotenetik, neu bezelako arraintzaleak.

KILI-KOLO.—*Illunpean daukaguzan eskillara oietatik, larogei urteko agura zar bezela ibiltzen gera arraintza-tresnekin besapean... bai jatxitean, baita igotean ere, jausteko bildurrez. Iñoiz, illunpeko eskillara oietan, umeak gabaz jolasean ikusi ditut. Iperdian jo, eskutik oratu, ta molla ganean ezarriaz, esan dizkiet: «Ez jatsi geio eskillara oitara, jausten ba'zaree uretara, ito egingo zaree-ta».*

Ez dakit nork daben illunpe ori kentzeko ardurea, baiña dakitena da, oker ez ba'nago sasoie dala argiak ipinteko, ixarrik jazo baiño lenago. Urteak daukazan egunik geienetan arraintzaleok, eskillara orreitatik jarraitzen dugu, sendira eguneroko ogia eramaten.

Karriketan, molle barruetan, landoletan-eta... uste dut argi ederrekaz ikusiak gaudela. Eta itxasora begira dauden eskillarak argi barik, zergaitik? Ez al du merezi cgi-bideko eskillareak argirik? Ala ez al dugu balio arraintzaleok argi-ordaintza batek baiño geio?

NUNDIK BIZI-POZA?—*Edo nondik datorkio irabazirik onena gure Bermio erriari? Ongi ta ederki dakigu ez datorrela lenbizi karriketatik, baizik itxasotik. Itxasotik ez datorrenean, bekoki-illun Bermio guztia... Itxasotik datorrenean erri guztian alaitasuna. Ta au onela izanda, arrisku orretan jarraitu bear dogula oindik! Eta amaitzeko, badagoz baita Gaztelupe'n, laukotu bear diran eskillara batzuk be, birbilduta dagoz-eta, ta laprast eiteko antzera.*

AZPEITIA'TAR GOTZON'EK

Arrasate

JAIAK.—Prantziskotarren Eleiz inguruetako biztanleak eratuta Pantzeska Deunaren jaiak izan dira. Jaiak euskal-kutsua izan zuten Goizean euskal meza ederra eleiza jentez beterik. Gero bertsolariak, dantzariak eta abar. Baiña egitaraua eta egitarauko idazlantxoak eta iragarkiak danak erderaz. Ea urrengo urtean euskerari toki geiago ematen zaion.

PERRETXIKUAK.—Besaide Mendigoizale Bazkunak eratuta perretxikuak aintzakotzat artuta itzaldi batzuk izan dira eta oso egokiak gañera. Besaide au lan ederrak egiten ari da, gure mendiak ezagutuaz gañera, berton ikusten diran ezaugarriak geure biotzean sartu erazten. Basa-eleizak diralata, mendi eta baso izenak ausnartu, bideak ezagutu eta abar eta orain perretxikuatzaz diardue. Gauza oneik oso ondo dagoz eta jarrai bide ortatik Besaide'ko mendigoizale bizkorrok.

ERIOTZAK. — Jaunak Beraganatu du Arabaolaza'tar Miren, bere 88 urtegaz. Atsekabean laguntzen dautsegu bere seme-alabak diran: Balerdi'tar Andoni, Karmele eta Anpararo'ri. Baita beste senide guztiei ere. Goian Bego.

Baita ere il da 59 urtegaz, Biteri'tar Justo. Atsekabean laguntzen dautsagu bere emazte eta senidei. G. B.

Beste eriotz tamalgarri bat bere izan dogu; Larrañaga'tar Yon, bere 9 urtegaz berebil batek zapalduta.

«DAÑOK» EN ALDE.—«Kanta Berri» saioa eratzearekin alkarte onek euki duan diru galtzea zuzentzeko, Otamendi Jai Aretoan izan du euskal jai-aldi bat. Bertan izan dira Oiartzun'go Oraintza taldea eta Billaro'ko Patxi jai egille bezela. Oso ederki egon ziran danak eta jentea be erruz egon zan.

UDALAITZ.—Adierazita zegon bezela ill onen 12'an izan da mendi orretan jarri dan gurutzaren askundea. Gurutz onek amar metro luze ditu eta beronen egilleak «Udalaitz-zaleak» izan dira. Gurutze au gallurra baiño beratxuago dago, Arrasate'tik ikusteagaitik ipiñia, ba-da gallurra bera ez da ikusten erri bertatik. Gorago eta gallur-gallurrean beste txikiagoa dago, Udalaitz-zale zan Baltzategi, tar Gotzon zanaren oroitzapenez. Esan bezela goizean kalejiraren bitartez igo ziran, zenbat? bi milla edo iru milla? Ez dakigu ziur baiña asko igo zirala bai beste orrenbeste iñoiz ikusi ez dan beste.

Jarrai daigun aurrera. Amaiketan izan zan meza gure Parruku Iñarra'tar Joseba'k emonda. Zein atsegin aundia an goian euskal meza ori entzutean eta dana euskeraz. Abestiak oso egoki. Gurutze onen oroipena, mendian il diran mendigoizalearen izenean izan da eta batez ere gure erritar Zabaleta'tar Luis, Intxorta'n il zana tximistaz, eta Azpiazu'tar Pako, Gorbea'n amildegira jausita.

Igaro ziran zertzelada guztiak emen agertzeko luzeegiak izango dirala ta amaitu bearrean naiz, baiña ezin uka an izan ziran guztiak ez dutela aztuko egun gogoragorri ori. Ikusten dezute gazteok, biotza alaitu eta kristau ta euskal kutsuz betetzeko mendira igo bear dogula. Antxe zerua urrago eta gure inguruko mendiak begi aurrean ditugularik izango ditugu maiteago Jaungoikoa eta Euskalerria. Mendira juaten zareanok, izango dituzute irainduko zaituenak: batetik aulkeria dala, bestetik ez-dala gaurkotasunari dagokiona, baiña ez aztu! Orixe berbera esaten zan orain dirala 40 urte, orduko mendigoizaleagaitik baiña laister ikusi zan orduko gazteen ausartasuna zenbaiterañokoa izan zan. Eta onegaz aski da.

Jarrai beraz gazteok bide ortatik eta igo gure euskal mendi ederretara; andik, egunen baten, jatxiko gara uol aundi bat bezela gure erri ederrak garbitzera gaurko zikintasun guztietatik.

UDALAITZ

Galdakano

Aurreko urteetan erriak atsegiñez ospatu izan dituan euskal-jai barik geratu gara aurten. Lenengotan bayetza emon eutseen gazte taldekoei, «Peña Santa Cruz» en laguntzaz gertatutako egitarua ontzat emonaz. Bestela izan be ezin litzakean aurreko urteetan egindako jai baketsu ta alaiak ikusita: euskel-abestiak, antzerkiak, jantzaketak, jolasak eta burditzen ibilketak, baita euskal gaizko itzaldiak be; aste oso baterako jaiak, au da: Iraillaren 30'gnean asi ta Urrillaren 7'gnerarte. Baiña, iñork ez ba'daki be zergaitik eta norgaitik izan dan, azkenengo orduan, dana edo geiena gertatuta eukeenean, debekatua izan da, itzaldiak izan ezik. Oneik, itzaldi edo itzlari, «arriskugarri» ez ziralakoa bear ba'da.

Dana dala, bear zan notintzarik bertaratu ez ba'zan be, ospatu al izan dira. Eta jakitunakandik beti zerbait ikasten dala-ta, gu be bertan izan gara, gure langintzak epea emon dauskun aldietan, eta batez bere «Euskeraren Batasunatzaz» izan zanera. Beste egunetako itzaldien gaiak, «Euskal-ekonomia», «Euskal-jakintza» ta «Gizona ta Ertia» izan ziran. Guk batasunatzazkoa entzun gendun osoan.

Itzlari aren jokabidea pizkat ezagutzen dogun ezkero, ba-genkian gitxi gora-bera zertara joko eban bere itzaldian. Baiña egoki zanez bere eretxia entzutea, arreta andienagaz entzun gendun. Itzalariak esan ebanez, itzaldia iru zatitan izan zan. Lenengoa, zelan gizladiak zear izkuntzaren bardingetasunak sortuak izan diran, aldakuntzak, naita abenderri batekoak eta jatorriz anaiak izan. Bigarren zatian, zelan eta nortzun eragiñez, gerkera, latera, frantzera, doistera, gaztelera, ta azkenez katalanera ta abar, gaur danak izkuntz aberatsak izatera eldu diran. Beno, danak edo geienak, eskerrak gizon jakintsu ta erri-buru ondo ezieri. Ez dago esan bearrik, azalpen bi orreitan gauza jakingarririk asko esan euskula. Eta irugarren eta azkenengo aldian be, «Euskera Batua» dala-ta, azalpenik ugari emon eban, baiña alderdikeriz jokatuten dabenak, «norbere eretxia» derrigor nagusi izan bear dabela uste dabenak, sarritan korapillotu egiten dira, ta ortik urten ez dabelako nai edo ezin dabelako, bertan diardue jo ta ke nai dabena ta ez dabena bertan sartuteko alegiñetan.

Itzlari aren esaketatik esan leiteke, euskera «batua» benetakoa izango ba'da, derrigorrez gerkar «h» utsa ta erderakada ugarikoa izan bearko dau. Bai ba, bestera zelan idatzi «bentania, kaballoa, telebizinoa, errealitatea, estruktura, ptolema» ta abar, sarritan darabillazen antzera? Beste gauza askoren artean, itzlariak esan ebanez, jakintzazko euskera «batuan» erriak geyen darabilizan itzak artuko dirala, ta jakiña «h» a be bai, Errioxa'ko «San Millan» lekaideixe zarrean aurkitzen diran argibide, bilduma zarretan ikusten dalako antxiña Euskalerri «espainola» guziak be «h» erabilli ebala edo agoztuten ebala. Ara non, zarrok ez dogula ezer onik esaten daben h-zaleak, zar-zarzaleak egin yakuzan!

Entzule batek erantzun eutson (itzlariak egiten eban antzera, euskera «baturako» gazteleraz): Ez dagola iñor Ego-aldeko euskaldunak «h»'rik agoztu edo erabilli ebela egiztatuko dabenik. «San Millan»'eko eleizgizonak, jakitunak eurak bear ba'da, lateraz eziak izanik, ziurki laterazko idazkerea arturik, lateran «h» a darabillen edo erabillen itzak euskeraldukeran, izki ori sartuten eutseelako baiño.

Ori ez dala egia esan eban, eta eredutzat Axular euskel idazlea ipinten eban, esanaz: Auxlar'ek errian bizi zala ta erritik artu ebala lenengoz euskeraz idatzi zan idaztian argitu zan izkerea.

Bai, Axular'ek erriarengandik artuko eban, baiña ara or itzlariak non erantzulareana ontzat emoten eban, konturatu barik bear ba'da: Axular, edozeiñek dakian lez apaiza zan, beraz lateraz ezia; besterik, jatorriz ego-aldean jayo ta azi ba'zan be, iparraldeko Euskal-erri'an, Sara erri polit garbian ainbat urte apaiztzan egin ondoren, bertan egoala idatzi eban orain «h» zaleak eredutzat aurkeztu nai dauskuen aldi artako idazti ederra. Erriagandik artuko eban, baiña Auñamendiz ipar-aldeko euskaldunakandik eta ez egoaldekoakandik, itzlariak agertu gura ebanez.

Beste zerbait geyago be astindu zan itzaldi ortan, baiña luzeegi ez egitearren, geyago barik amaituko dogu, gure irakurleai auxe esanaz: adi ta zur egon daitezala «h» a ikurrintzat artuta euskerea murgilduten eta euskotasuna nastuten dabiltzenakaz.

EZKONTZEA.—*Urril onen 12'gnean, Begoña'ko Ama Neskutza'ren txadonean, erritar Basterretxea'tar Errapel eta Astorkitza ta Bilbao'tar Josune euskaltzale zintzoak, eta beraz, Agur'en irakurleak, ezkondu dira. Ea ba, Errapel, iñoiz ez baiño, berandu be oba dok-eta. Gure zorionik beroenak zuoi!*

BASA-JAUN

Tolosa

«EUSKALDUN FEDEDUN». — Esakera onek askoren gogoa ez duala betetzen bagenenkian. Leen ere nunbaitean «urrezko izkietan» eta konsigna bezela idatzirik ikusi dugu. Baiñan aita frantzizkotar bati min eman zezaiokenik ez zitzaigun bururatu ere egindo... entzun ez ba'genion sermoi batean. Eta gauz batek min dagigunean, a zer nolako arrazoiak arkintzen ditugun!

«Euskaldun fededun» esakera ori ez dago Biblian. Asmakizun borobilla! Ainbeste urteetan teologia ikasten jardun gabe ba-genekigun, Aita Insausti. Baita Aralar'ko artzaiak ere! Burua zeruz bertago bai-darabilkie!

«Ez baita fedea erriarentzat, baizik gizaki bakoitzarentzat». Eta ni euskaldun, edo zu euskaldun ez al gera bakoitza gizaki bat? Ezin al gindezke fededun izan? Ni bai beintzat... Eta nork galeraziko dit fededuna izaten? Teologoa zeranez... zein Biblian ikusi dezakegu besterik?

Geldoenak ere ba-daki euskaldun guztiak ez dirala fededunak. Baiñan ara: Ba-dakigu ere apaiz eta fraile askok eleiz-jantzilikatu dituztela, zenbaitzuek ere fedea galdu dutela, eta lagatzeko ere ba-dabiltzala anitz. Alaz ere esan genezake, naiz Biblian idatzirik ez egon «apaiz eta fraile berarekin fede». Euskera batuan esanda: «ezepzioak konfirmatzen du regla».

Zer derizkiotzu, bai ala ez?

(3'gnera)

ARGI EGIDAZU, LAGUN EGIDAZU

«Lizardi» zanak Marki'egitar Joseba Apaizari eskeiñi zion Olerkiaren idazburua dezu ori, irakurle, «ARGI EGIDAZU».

Biak nizkizun ezagun, biak lagun, biak adizkide. *Aiek ziran Gizonak, aiek!*

Bere egitekoa betea, nonbait, emen bean eta ogei ta amasei urtetan, Gora deitua zun «Lizardi», Jaun Onak. «*Yainko-Muño-Gaiñetara*».

Markiegi apaiza...

«*Amaika aldiz lurpera gizonek gizonak...*»

Ez zenun asko uste, «Lizardi», «Zugatz Etzana» idaztean, ez zenun asko uste, urte gutxi barru Markiegi'tar Joseba apaiza adizkideagan beteko zirala zure itz oriek.

«*Amaika aldiz lurpera gizonek gizonak*»

Gaur beste idazle gazte baten eriotz-urtemuga. Urtebete «Asaba zaarren baratza»'tik alde egin ziguzula, Mañu'ko Apaiza.

Adizkide min orien utsuneak, gogortxo eragiten zenbait egunez, egunotan, nik dakidan bati, *Aiek ziran gizonak, aiek!*

Zure bizitzako, zure bizitza laburreko, azken aldi aretan, oiñetako ideki ta beatzak agerian, azaldu ziñan gurean egun batez. Orain urtebeteko argazkian «AGUR»'en daramazkizun oiñetako idekiak.

—*Karmeldar oin-utsa?*, **izan zenun nire agurra.**
—*Gaizki nenbillen, oiñetakoak ezin jasan. Onela lasai noa.*

Iñondik ere, gaitzak joa ordurako, gixaxo ori. Beste bat ere ikusia dizut egunotan, orrelaxe, oiñetako ideki ta beatzak agerian. Ez dizu orrelako oiturarik. Burruka zarrak gogorraldi, ta soin-gogo, gorputz-anima izaki, gogo-oiñazeak erasan egin soiñari.

«*Gaurgero garbi dauzkak*
Begi-niñietan
Aita-Seme-Gogo Deun
Iangoiko batetan» (Orixe'k).

Zukin ari naiz, Mañu'ko apaiza, Zukin eta zure antzekoentzat, kakotx arteko itz oriek, goxo ez ba'zitzazkizun ba, pozik ikusiko lerro auetan. Nik zure eskutitzetan ikusten nitun bezelaxe.

Gaurgero garbi daukazu danez, aurrez aurre, Jainkoa, aurrez aurre Egia. Ain kutuk zenun Egia.

Burruka-lagun zenun oni, lagun egiozu. «Egi alde, Zuzen alde, kosta ala kosta». Zintzo iraun dezan, egin lagun, Mañu'ko Apaiza.

«Argi egidazu»'ren amaia:

«*Argi egidazu*
Bizi nadin arte!».

IRA'K

ETXE-BIZITZAREN ARAZOA

NOLAZ ARI DAN TXARTZEN

Ludia biztanlez ugaritzen dijoan eraberean dijoa ere aunditzen arazo au. Arazo latza benetan, eta zuzendu bearrekoa. Onela ikusi dute ONU'k, eta bere erakundeak. Eta etxegintzari lagundu nairik asmoak ekintzetan biurtzeko aldizkari bat argitaratzen asi da: «Human Settlements» (Gizaki etxe-bizitza).

Philippe de Synes, ONU'ko Idazkari Nagusiaren usteetan erabateko laguntzaille izango omen aldizkari au, uri-nagusietako eta nekazari-errietako etxe arazoak konpon bidean ipiñi aal izateko.

Berak bai-dio ere arazo au ikaragarria izatekotan dala. Gaur bizi dan beste ainbeste, au da zazpi milla milloi biztanle izango omen ditu-ta, 2.000'gn. urtean ludiak. Eta aunditze onetan uri-nagusiak gaur dituzten iru bider biztanle geiago izango omen, danera iru milla milloi gizaki.

Eta ara nun datorren ONU'ko Zientzia eta Teknolojia Erabiltzeko Batzarra jokabide bat eraturik sozial-arazo oni lagundu naiean. Teknoloji ori ongi erabilli ezkeroz zuzendu bai-liteke arazoa. Etxe-bizitzak egiten joan bear dira, eta egin nola-ala.

Izan ere, ONU'k dionez, 2.000'gn. urtean 1.400 milloi etxe-bizitz berri bearko omen dira. Eta urtero, milla gizakientzat amar etxe-bizitz berri egin. Eta arazoaren latza garbi azaltzen zaigu ikusirik erri aurreratuak bi edo iru egiten dituztela urtean. Ortik atera erri atzeratuak zer egingo.

Jokabide edo Plan orrek gogora ekartzen digu, egunero-egunero, ea larogeitamar milla gizaki etortzen dirala Latino-Amerikan, nekazari lurrak utzita urietara. Aldizkariaren zenbakietan 325 milloi biztanle berri 1.980'gn. urtean. Beldurgarria da pentsatzea luditar gizakien erdiak 2.000 g. urtean uri-nagusietan biziko dirala.

ZER EGIN?

Jokabide edo Plan orrek gauz berriak asmatzera edo sumatzera bultzatzen du. Etxegintzarako gai berriak sortzera. Zenbait erri asi dira probaketan. Onela, ONU'ren laguntza onetaz burni gabeko azufrea erabiltzen dute etxegintzagai Guatemala'n. Ladrillozko etxegintzan lortu dute erabiltzea azufrea zementoaren ordez. Japon'ek ere teknika berri bat ibillian jarri du, zakarretatik asita etxegintz-gai berri bat sorturik. India'n, berriz, barazki eta leken ondarrekin etxegintzarako bloke edo mokorrak egiten dituzte. Ale ta barazki ondakiñaz, txikiturik eta erretxiñari eta kolari naasiaz, eta kimika igurtziaz, igarri eziñeko esia omen da termita-txingurrientzat. Eta URRS'en bai omen dira irurogeitamar landolak zotal edo mokorrak egiten dituztenak, lasto-ziriak prentsatu eta alkarrengana lotuaz burni-ari batzuen bitartez.

AZTERKETA BAT

Agertu ditudan berri auetatik ondoren bat atera genezake.

Arazoa konponduko ote litzake bear diran etxe guztiak egiñik ere? Bai, baiñan erdizka. Gizaki bakoitzak, bikote bakoitzak bere kabia nai du, pizti guztiak bezelaxe. Eta poztuko giñake iñor geldituko ez ba'litz etxe gaberik. Eta goserik gabe biziko ba'litz. Adierazi nai nukeana da, lenen gurasoengandik nabaitu dugun ezberdintasuna ez dagoala iltzeko, baizik geiago nabarmentzeko. Leitzaluetatik atera ziran ordukoxe ageritako ezberdintasuna. Bustin eta arri kaskarraz egindako txaboletatik, edo arbaztaz, baita ere zotalez egindako etxoletatik arri ederrez, egur aberatsez, eta, gero, zementoz eta burniaz egindako etxe bikaiñetara dagoan aldea xautzeko ikuspegirik ez dugu begi aurrean.

Etxeak egingo dira, eta gure poza litzake. Baiñan ezberdintasuna geiagotzen dijoa, ala ere lenengoz iñor aterpean bizitzen ipintzea da. Ezberdintasuna kentzen gauz eziñezkoa bait-da. URRS berak ere, adibidez, funtzionarioen etxe ederren inguruan langilleen lasto-ziri prentsatuaz egiñikakoak altxako ditu.

Lenagoko buztiñezko etxe inguruetan zakarrez eta barazki ondakiñez egiñakoak ere ikusiko dira bazterretan. Pentsatzen dugu gaitz-bideak kenduta erabilliko dirala. Baiñan alaz ere etxe batean pilla-pilla eginda bizitzea baiñon obeagoa izango dala uste dugu.

Guztiak etxe ederretan bizitzen ipintzea eziñezkoa deritzaigularik gaurkoz, izan dezagula guztiok gurea, arlotea beenik. Eta oiñarri onetatik asita saia tajuzko bizilekuren bat lortzen. Euskal mendietako karaitzez guk; eta erri bakoitzak sor ditzazken etxegintz-gai egokienaz gaiñerantzeko mundutarrek.

OLAZABAL'DAR XABIER

ARTETXE IDAZLEA

«Illak obira ta, biziak ogira». Auxe da egi benetakoa; auxe da mundu ontako, ioan-etorrietako giza elburua. Nai ta nai-ez-ko erbesteratzea. Gure Lizardi olerkari ospetsuak bere poema eder batean onela abestu euskun:

Oi, zein dan ituna
beera bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!

Iñork ez dau etorkera, aldaketa ori nai izaten, danik santuena izanda bere. Danok dogu gitxi-asko, erbesteratze orren bildurra. Baiña, atzerago, aurrerago etorri datorkigu ixil-ixillik, osteka, balbe itzal, illun, balbe edo eriotz maltzur, eriotz baltz ori. Ta Udazken sarreran ilbarri izan daku gure gorengo erdel idazle on bat. Bere illeta egunean eliza noraño-araño bete-betea zegon. Euslalerriak ondo erantzun dautso bere azken agurrean!

Nik egia esan, zu Joxe, arpegiz ez zindudan ezagutzen, bai, ordea, zure erderazko ta, baita euskerazko lan bikain, artikulu ederretatik. Egun auetako egunkari, astekari, aldizkari orotan, euskeraz ta erderazko berein idazlan irakurri doguz zure oroi ta gorazarrez, zure bizitza zindoa aupatu, gogoratuz; zure gizontasun ta apaltasuna; zure zintzotasuna ta, zure izakera artez ta, zuzena goralduz; zure biotz on, eskertsu, laguntzallearen barri emonaz.

Bai idazle on bat galdu dogu. Nik bere idazlan guztiak ez dodaz txalotuko baiña, bai ezagutu bere bizitza guztiko idazlanetan egin zituan alegiñak euskera ta Euskalerria iazotzeko. Orixe bai. Nik Jose de Arteche baiño lenago ezagutu nuen idazle bikaiña Artetxe tar Joseba izan zan, arako Yakintza izeneko ta Donostia'n argitaltzen asi barria zan elebiko aldizkari ederrean, 1933'gko urtearen 2'garren zenbakian. «Eltzo olerkariya» izenburuz ta, ain zuzen, urte batzuk, amasei bat urte aurrerago illa zan Eltzo olerkari bioztuna goraltzeko idatzi eban idazlanetik lerro batzuk artuko dodaz.

Ona emen zer diñon Artetxe'k, «Euskeraren alde bere bizi guztiko almenak ondatu ta Jaunak aldentzen ditu gugandik zenbait euskeltzale. Eta, berialaxe badirudi astutzen ditugula askor otz ta illunean. Orrelako gizonak gogoratzia bearrekoa zaigu; beartuak gera berak euskeraren alde egindako lan bereziak azaltzera. Zori onez urte oetan ainbat lan egin da zaill orretan. Bestera balitz esango genduke gure euskerak iñoiz ez lukela jasoko burua».

Itz edo berba auek adierazten dauskue bere euskeltzaletasuna, urteak aurrera, eriotz orduraño iraun duana. Euskeltzalia ta euskotarra zan biotzez gure Artetxe.

Berari iarraituz, Eltzo'ri buruzko idazlan ortan dirauskuenez «Euskel zaletasuna benetakua Eltzo'k agertzen diguna. Dana batean esateko, baita abertzaletasun berezi bat. Egitan, gaurko egunean abertzaletasuna euskel zaletasuna esatea da. Ezin ditezke eten».

Bide ontatik iokatu zuen Artetxe'k Euskera ta Erria biotzean zituala. Gaur bertan, bera il ta, egun batzuetara azaldu da Donostia'ko Hoja del Lunes'en orrialdetan bere euskerazko lana, azkenengo lana: Eztabaida. Euskaldunok dabilgun eztabaida. H dala ta eztala, eta, abar, euskaldunok dabilgun eztabaidari buruzko lan, azken-lan tristea.

Bai, Joxe, guda ondoren guretzako etorri ta bizkarrera iauzi zan gau negargarri ta baltzean, zu, zori onez, bizirik gelditu ziñan ta, beraz, euskal giroa itota, lurperatua zegon aldi mingotz artan, zuk toki apal, berezi bat arkitu zendun erdel egunkari ta aldizkarietan, ta poliki, ederto, zeure idaztiak be, banan-banan agertzen asi ziñan.

Egia esateko, zure azken aldiko «Illen Besarkada» ori ez da guztiontzako gogoko izan baiña zuk, Joxe, zeure pentsakera argi ta garbi, zintzotasunez, biotzez azaldu dozuzan ezkero, ta, zeure gizatasun, zeure kistartasun, zeure erri-maitasun ta euskeltzaletasun orren eredu onez, zure akats txikiok parkatuak izango dira...

Gizona ziñan, siniste aundiko gizona; eguneroko lan, egite latzean gizon izaten erakutsi zenduna.

Agur ba, Joxe, agur... Egun Aundirarte!!

MUNIATEGI'TAR SABIN

ARTEXE'RI BIOTZEZ

Idazle oneri, aspalditik irakurtzen dizkiot bere lanak. Batez ere, Zeruko-Argia'n idazten asi zanetik.

Neretzako, idazle onen pentsamentuak oso atsegingarri zaizkit. Atsegin, bere lume errexagaitik, bere esanagaitik eta batez ere; gizona benetan maitazten duelako.

Artetxe'k, euskeraz idazten du eta berdin ere erderaz. Bere lanaren ordaiñez sarritan kritika berezi batzuk jaso izan oi ditu.

Ala ere, berak idazten jarraitzen du, bere gai guztietan, euskalerriko kutsua zabaltzen duelarik. Izan ere berak ori du maite.

Idazle onak, benetako idazleak, askotan izaten oi dira kritikatuak. Izan ere, idazle txar eta kaxkarrak ez dira izaten kritika baten jabe, ez dute orrelakorik merezi (?).

Artexe Azpeitia'n jaio eta Donostia'n bizi da. Euskalerria'ri bira eman dio, bere itz jakintsuak errietan zabaltzeko asmoakin. Euskalerri'tik kanpo ere, gure euskal kutsua erakutsi izan oi du.

Ez da bere lanean aspertzen, naiz ta batzutan osasunak lagundu ez izan. Ni, gazte naizen aldetik Artetxe'ren exenploa beti izango det gogoan, animan barruan sarturik.

Lanean jarraitzen duelako bere bidetik, gizona maitatuaz etsipenik gabe.

OARRA.—*Lantxo au, orain direla illabete batzuk idatzi nun, Zeruko-Argia'n argitaratzeko asmoakin. Egun aietan, bertako zuzendariak ez zuten egokia iruditu numbait bere izparringian azaltzea. Orregaitik, gaur emen azaltzea pentsatu det.*

* * *

Gaur ordea, dana illun dago, egun batean gertatu bear zuena gertatu da, Ludi ometatik joan zaigun Artexe'nik beretzaz zer geio esan nezake?

Beste asko saiatu dira beratzaz zerbait esan naiean. Len kritikatua zan gizona, orain, il ondoren botatzen dizkiote lorak. Betiko gorabera da ori.

Ala ere, neretzako Artetxe'k etzuan biotza gaixorik, biotzean miña baizik.

Miña eman diote bera konprenitu ez duten gizon guztiak. Nik ere ba'liteke askotan bera ulertu ez izatea, neure pentsaera kaxkarrakin.

Danok ez ote degu pixka bat il Artetxe?

Berak ordea, ziur naiz, danori barkatu digu gure utzegitea.

Gaur, jendea kalean presaka dabil, ibaietan arraiak jostatzen dabiltz, bide ondoan, zugaitzen gallurretan, txoriak kantari dagoz; Euzkal-Errian, egia eta maitasuna lortu nai dutenak gizon bat galdu dute.

R. ZAPIRAIN

AGUR

II URTEA
24 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - AZILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

GIZON A

Gizonak erria osotzen dabe. Egi argia ta gogoangarria.

Ume bat bere seaskatxuan ikusten dogunean, itxaropenaren irudi bizi bat agertzen jaku: Zer izango eta da ume au? Zer egingo ete dau Erriaren alde?

Antxe dagoz almenak. Geroak azaldu ta zabaldu bearko ditu. Giroak egingo dau gizona.

Gizartearen argi-izpiak bere adimenera sartzen diranean itzartze zoragarri bat izango dau: izkuntza bat entzun eta beretuko dau, bizikera bat aurkeztuko jako, arazo gogorrak eta astunak agertuko jakoz, laster gizarteko bear ikaragarriak ikusiko ditu.

Zelakoa izango ete da ume orrek artuko dauan egokerea?

* * *

Gaztarora eltzen danean, aztertzea asten da. Giroa ta geroa ikusiaz, burrukarako gertatzeko ordua da.

Alde batetik, gurasoakandik artu dauan munduaren utsak ikusten ditu. Atzekoz aurrera eginda dagoala gizartea iruditzen jako. Aztertze sakon bat egin ondoren, asten da gaztearen burrukea: Bere aurrekoen eretxiak izan daikeezan okerrak zuzendu egin bear, eta, au be ba ledike, bear ba'da osoosoan beste bide bat artu bear... Zergaitik? Beretzat eta bere ostekoentzat mundu barri ta obeagoa egiten alegindu bear dalako. Ori, gaztetarik, ardura aundi bat da gizon arentzat.

* * *

Eta ortik sortzen da burrukea.

Lenengo ta bein, berba egin bear. Eretxi zuzenok argi ta garbi egertzen ez ba'dira, egundo ez da etorriko bearrezko dan aldatza ori, mundu barri ori.

Baiña berba non? Aldizkarietan, liburuetan, giza-aurreko itzaldietan...

Eta zein izango da giroaren erantzuna? Geienetan gogorra: lenengo ixilerazo; gero, ezin ixildu izango da-ta, zemaiak. Baiña gure gaztea adoretsua da eta ez da ikaratuko, ez da kikilduko, aurrera ekingo dau.

Baiña gizarte giroa be sendotu egingo da. Zemaietatik egiteetara joko dau. Eta, nok jakin? gure gaztea bear ba'da espetxera eroango dabe. Areik gabak eta egunak! Eta gaberdi illunen baten ate-jote bildurgarriren batek norako deia ekarri legiken jakin ez!

Baiña gaztearen azia ereinda dago. Bere gogoa gizartean sartu da. Baten burrukea gizarte-arazo biurtu da. Eta alkar-izketa zintzoz zuzendu bearreko barritze au nora eroaten ete dabe gizonak? Izkilluetara? Ibaiak gorritzera? Argitasunari argitasunagaz erantzun bear, ez gogorkeriagaz.

* * *

Eta zenbat olako gazte, zenbat olako gizon mundu zabalean: India'n, Afrika'n, Ego-Amerika'n...! Zenbat olako gizon gure Erriaren Kondairean! Gogoratu daigun Erriaren alde jokatu dauan gizon a.

AGUR



AMURIZA'REN LANA DALA TA

Gure Amuriza, bertsolari ta idazle ospetsuak Aldous Husley'ren «Brave new world» eleberria euskeratu dau, eta itzulpen oneri sarrera naikoa luze bat ezarri dautso.

Amuritza'ri dautsagun maitasuna ta begirunea agertu ondoren, eta ezdabaidetan sartzeko gogo barik, alkartean agertu diran eretxiak agertu gura doguz. Ez dogu uste iñori miñik emongo dautsagunik, gitxiago aspaldion ainbeste neketan bizi dan Amuriza adiskideari. Ori ez da beintzat gure guraria. Euskereari buruz geure pentzakerea apur bat agertzea besterik ez dogu nai.

* * *

Onetariko liburuak agertzeko euskereak berak ezintasun bat dauala diño Amuriza'k.

Guk, orrelako ezintasunik ez dagola uste dogu. Liburu bat euskeratutea lan gatxa da, batez be gaztelera tik itzultzen danean, baiña gaiztasun ori, guk uste dogunez, ez dator euskerearen ezintasunetik, izkuntza biok oso ezbardiñak izatetik baiño. Errezagoa da latiñetik edo beste izkuntza batzuetatik euskeratzea.

Euskeraz gai sakonak erabilli dira, esaterako Agustin deunaren aitorkizunak, Bergson'en jakituri-eretxiak, Tormes'ko Lazaro itsu-mutilla (au bai gatxa euskeratzeko) ta abar...

Eta gai sakon bat euskeraz idazten dogunean ez ete dogu antzeko gaiztasuna aurkitzen erderatzeko? Gaiztasuna itzultzearena da ba, izkuntzearena baiño geiago.

Euskerea aberastuteko ta goi-maillara eroateko alegindu bear gara, au be egia da, baiña gure izkuntzeak barruan ditun almenak eta aberastasunak ez daiguzan ukatu: ariketa aldetik, iztegian, itz-osotzean, batez bere atzizkien aberastasun ikaragarria...

* * *

Batasunaren arazoa dakarsku gero Amuritza'k.

Batasuna bearrezkoa da eta egiñez giñoiazan. Baiña gaur aurkitzen dogun izkuntza-giroa batasunetik urrintzeko bidea dalakoan gagoz. Gaur iñoz baiño urriñago ikusten dogu batasuna.

«Batasunaren kutxa» oinkada aundi bat dala diño Amuriza'k. Eta onetan be ez gatoz batera. Zergaitik? Berak diñona egi aundia: Zerrenda aretan Erria alde batera itzi dalako, eta Erria barik egiten dan izkuntzea ezin izan jatorra, ezin izan EUSKEREA. Ala talde aundi baten eskuetan ete dago izkuntzea batzea? Ez ete da agertuko euskerea ez dan izkuntza *barri bat? Erriaren izkuntzeari itzaltasuna zor jako.*

Batasuna arin eta ondo egitea al dan gauzea ba'leiteke, nork ez leuke nai izango? Gurasoak be euren umeak arin aztea nai izaten dabe, baiña itxaron egin bear, Euskerea ainbat lasterren batzea gura dogu, baiña batze ori ondo egitea beiñago dalakoan gagoz. Gu ez gara iñor zenbat denpora barruan egingo dan esateko. Geure indar guztiakaz alegintzea naikoa dogu, eta batasuna egindakoan denporea zenbatzeko ordua izango da.

* * *

Iztegi barri bat eskatzen dau Amuritza'k. Eta euskereak itz lar daukalako, iñausketa bat egin bear dala diño. Ondo deritxagu. Baiña zein izango da artu bear dan itza? jantoki esateko sei-zazpi itz euskereak ba'ditu, erriak aitzen eta erabilten ditunak batzuk, zergaitik «komedora» artu?

Mujika'ren iztegiak ikasleai buru-austea dakartsela, egia da. Baiña edozein izkuntza ikasikeran buru-auste ori aurkitu dogu. Esaterako, Prantzi'an ango izkuntzea ikasi gura dauan batek, iztegian «sello» billatzen ba'dau, «sceau» eta «timbre» aurkituko ditu. Zein artu? Ez dira gauza bardiñak. Buru-auste ori guztiena da, ez euskerearena bakarrik.

Iztegi ori, bearrezkoa dala ta, egiterakoan zentzunez jokatzeko arduratu bearko gara. Esaterako, «Batasunaren kutxa»'k azaltzen ditun itzen artean «kutxa» itza bera ez da agertzen. «Batasunaren kutxa»'k euskerearen ugaritasun larregia ugariagotu egiten dausku, eta ez aberastu. Euskera-zugatzak bere-bereak ditun abar eta kima asko iñausi, ta euren ordez erderatik txertatuta daukazanak zugatzean itzi; edo txarrago, erderazko abar barriak txertatu ta euskerazkoak, oraindiño mardul ta frutukor dirauenak iñausi.

Ona emen, adibidez, Amuriza'ren beraren idazlanetik urten gabe, oartzen doguzan iñausketa ta txertaketa batzuk: irakurri ta leitu; apaltasun ta umildade; ikasi ta estudiatu; linguista ta hizkuntzalari; modu, era, itxura, arau gisa...; konprenitu, aditu ta ulertu; gai = materia (erriarentzat, Bizkai'koarentzat beintzat, «materiak» erderazko pus *esan nai dau); salatu ta akusatu; idatzi ta eskribatu; denbora, aldi ta asti; bortitz, gogor ta indartsu; bide ta kamino; mugimendu ta higidura ta eragiña (baiña euskerazko biak ez ditu aitatzen euren tokian); pausu ta urrats; zerrenda, ilara ta lerro; nekatu ta kantsatu; adibide ta esenplua; pasatu = iragan ta igaro (baiña igaro ez dakar bere tokian); guti, urri ta eskas; segitu ta jarraiki; diferente = ezbardiña (baiña au ez dakar bere tokian); gertatu, jazo ta pasatu; problema ta arazo; franko, ugari asko ta anitz...*

Euskal itzak oztopo ba'doguz eta baita sintaxia bere, zertan geratzen da gure euskerea? Zergaitik ez geldiro-geldiro barik beingo batean erdera bat onartu?

«KARDABERAZ»

GU, IKASTOLEN ALDE

Euskaldunen arteko eztabaida, griña-txar eta burrukak etsaien poza sortzen dabenik ezin uka; ori ziurtasun osoakin dakigu. Baiña «artikulu» batzuk erantzun barik iztea be, «barruko» arerioen onerako litzakela dirudi.

Eleizako aldizkari baten «guztiok nirekin akort izanen zarate» edo antzeko lerro bategaz asten dan euskerantozko idazlan bat irakurri dogu. Idazlea lagun ona dot, alkarrekin «opor-aldiak» egiñak gara, derrigorrezko opor-aldiak, baiña aspaldian ningandik urrun dabil. Dana dala langille bezin adizkide ba'litz... baiña iñoren morrointzan asi danetik ona, ikeragarrizko laprastadak izaten ditu. Orregaitik ez gu «akort izanen» edo danadalako ori.

Ikastolen aurkako bezela salatzen gaitu, uskeriz baiña salatzen... eta guk ikastolak salbatzea nai; ikastolen alde gagoz, bizi egon bere. Gure seme-alabak be ikastolara bialtzen doguz-eta. Aurka dagozanak beste batzuk dira, nastatu nai dituezenak ain zuzen be; ikastolak iraultza tresnatzat artu nai dituezenak eta lagunak... baiña idazleak ez ditu orreik ikusten edo ez ditu ikusi nai. Orreik izango dira, egun batetik bestera, ikastolea ondamendira eroango dabenak.

Zuk «kontrolak» aipatzen dozuz; orreik jarrita daukazenak ete? Guk ez dogu ezertariko «kontrolik» nai. Gure iritziz ikastolako begirapena gurasoak izan bear dabe, eurak dira seme-alaben eziketearen jaun eta jabe. Gurasoak erabaki bearko dabe:

a) Eziketea kristau girokoa ala ez izan.

b) Euskera errikoia ala euskerantoa erabilli.

Neu be «ideoloji unibersalistekin» kezkatuta nago. Gure erriaren kristautasuna gordetzeko ez dogu kruzadarik bear, baiña Kontuz! Eleizearen aterpean, eleiza barrutik, eleizearen aldizkariak bidezko dirala kristautasuna apurtu, ondatu ta ezereztu nai izatea ekintza zitalagoa deritzat.

Ondo dagoz aldaketak, bearrezko dirala ikusten doguzanak, baiña «universalismo» baten ordez beste «bat» ezarri nai izatea beste «gauza» bat da; orren aurka, benetan gogor gagoz, ta ori da guk salatzen doguna.

Kristautasunik nai ez daben euskaldunak (izango dira, zergaitik ez?) bildu beitez eta lortu euren ikastolak, baiña ez eleizaren aterpeakin baliatu oni barrutik su emoteko; gitxiago askatasunaren eta zabaltasunaren izenean, apur batzuk mindu ez daitezan, beste guztiak bear daben eziketa barik itzi.

Ba ete-dakite gurasoak, zer ikasten daben andereiño ta irakasle batzuk ala-olako ikastaro batzuetan? Ori ete da auzokoaren eskubideak onartuaz, gordetzea? Ez ete-da ori azpijokoa?

Azpi-lana ta «anonimoak» aipatzen ditu len esandako idazle orrek... nik bi artu ditut aspalditik ona. Bata Lekuona'tar Manuel jaunaren aurka (orrek ezagutzen ditun «unibersalistak» egiña bear ba'da) ta bestea Bermeo'n edo zoro-etxe baten egon bear leuken batena, biak baiña atsegiñak, ez da? idazlearentzat; ez lengo adizkidearentzat, baiña bai gaurko gizon «progresistearentzat».

Idazleak diñoanez, danak, marxistak eta kristauak, kapitalistak eta langilleak erri bat osotzen dogula, baiña len esandako «anonimo» orreik gauza bat erakutsi dauskue: beste erri batzuetan jazo dan lez, marxista orreik gure errian agintzen jarriko ba'litzakez, ez gendukela kristau epelenak be eskubide larregirik izango. Oba izango da ba orain bertan banandu; gurasoak jakiñean jarri ta gero, jarraitu nai ba'dautse, or konpon!

Gaur «estruktura» guztiak lez kristautasuna be larri unean dago. Ikastolea, euskerea ta kulturea anai arteko gudarako izkillutzat artu nai dabezan iraultzaille paltsuak be ugaritu dira.

Euskal-erriko ikastolea ederra da, lora ta landara politenak emotekoa, ez baiña lora gorriak bakarrik. Aspalditik ona baratz au satorrak jo dute ta orrein lur-pillo itxusi ta motzak. Guk, euskaldun gurasook aztertu ta barriro landu bear doguz, sasiprogesistak nai ala nai ez. Txori-buru orreik dantzan darabiltezen eskuak, esku gorriak, ondo ezagutzen ditugu.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

NESKATIL JUDARRA EUSKEL IKASLE

Urte bi ta erdi igaro dira. London'en nenguala ingelanderaz idaztitako idazki garbi ta txukuna eskuratu neban. Idazleak bere izen-aurretik *Miss* jartzen eban ezkero, neskatilla zala banekian. Orrez gain, England'an oitura dan letz, bere zuzenbide ta etxeko urrutizkiña be jartzen ebazan. Euskera ikasi gura ebala-ta, nundik edo andik nire zuzenbidea lortu eban eta nigana jo.

Idatziz erantzun baño len urrutizkiñez beragana jo neban. Au dala ori dala, ziñismenara etorri giñan eta ia orokarr edo katolik ete-zan itaundu neutsan. Berak arin be arin erantzun eustan ezetz; ez zala orokarr ez eta kistarr be. *Judarra zala*, azaldu eban. Poz erdiz artu neban izparr ori ta berialaxe auxe erantzun: Orduan *shalom leka* (Agurr iri). Berak iribarreka okerr nenguala esan eustan. Mutillai eberkeraz *leka* esaten yakela, baña neskatillai *lak* edo *laj* Guk euskeraz letz, orrela judarrak be gizonezkoai eta emakumezkoai bide bedegarrez itz egiten dautse. Lasterr adiskidetu giñan, ba, eta euskera ikasteko neure laguntza eskeindu neutsan. Berealaxe eskuetan neukan euskel-elizti bakarra, Euzkeltzale-Bazkunakoa bidaldu neutsan. Gerotxuago ni Oxford-aldera joan nintzan eta bera Cambridge-aldera. Idatziz sarri eskatuten eustan laguntza. Ara emen zelako argitasunak eskatuten eustazan. Lenen-lenengoz eskatu eustana auxe izan zan. Zegaitik euskoidazle batzuk *judioa* idazten dabe eta beste batzuk *judarra*. Zegaitik batzuk *española* ta beste askok *españarra?*

Ulertu-erreza da ori, erantzun neutsan. Gure idazletatik askotxuk ez dabe euskel-ikastolarik euki, bai, eta erderaz bakarrik ikasi dabe. Beraz erderaz oldoztu ta pentsatu be egiten dabe. Erderaz sendin edo adjetiboak egiteko eurei yogokezan atzizkiak jartzen dabez. Onela: Juda'tik *judaeus* (lateraz) eta ortik españeraz *judío*, Mongolia'tik *mongol*, España'tik *español*, Paris'etik *parisino* ta abarr; baña guk geure euskerean beste atzizki politak eta aberatsak daukaguz eta ikastoletan irakatsi ba'leuskuen jakingo geunke *-arra* naiz *-tarra*, naiz *-eko* ta orrelakoak jartzen *judarra, españarra, mongoldarra* naiz *paristarra* esateko; baña ez dabe ikasi ta tamalez! gastelerazko atzizkiak jartzen dautsiez toki- izenai. Ba-daukaguz beste atzizki batzuk be *nundikako* gogai ori agertzeko; esate baterako or daukaguz gure *-ko* eta *-tik* eta orrelakoak; baña erderazko ikasbideak darabilguzalako, erderara joten dogu ta erderea euskera egin nai. Benetan lotsagarri!

Ulertzen dot ondo zer esan nai dozun, erantzun eustan neskatilleak. Guk judarrok ondiño ointxe be geure ikastolak daukaguz geure Sinagogakin batera. Eta zer uste dozu *judaismoa, cristianismoa* eta orrelakoak'tzaz? itandu eustan geruago.

Ba, ori negargarriago dala. Or erderazko atzizki bi geureak egiten dira. Cristianismo itz orretan atzizki bi dagoz eta *-ano* ta-*ismo* dira: cristi-ano-ismo. Guk -ano orren ordez geugeurea dan *-arr*, *-tarr*, naiz *-ko*, *-go* daukaguz eta *-tasun* ta keri erderazko *-ismo*'rako polito esan geinke: *kristar tasuna;* baña erderaz ikasi dabe askok eta erderaz jarraitu gura. Txarrago ondiño, batzutan HUMANISMOA be ikusiko dozu. Baña Euzkalerrian edozein baserritarrek daki zer dan GIZATASUNA, naiz ta jakin ez zer dan HUM-ANO-ISMO (Humanismoa).

Egi-egiz tamala dala uste dot euskera lako izkuntza zar ta polita, orrelako erderakadakaz nastatu ta zikintzea, idatzi eustan neskatilleak.

Eta nik auxe erantzun. Eskerrik asko. Argi zara ta argia ikusi dozu. Aurrera!

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

EUSKAL IDAZKEREA

Lengo baten neure lankide aragoitar batek esanda jakin nebanez «Heraldo de Aragón» egunerokoak euskal ortografiatzaz zerbait ekarri eban; baiña ez eustan ezer garbirik esan eta len lez gelditu nintzan. Ta gitxien uste nebanian idazki a bialdu dauts norbaitek ta jakin al izan dot len jakin naian gelditu nintzana. Eskerrik asko bialdu daustanari.

Euskal ortografia barria da, euskal literatura idatzia barria dalako. Orain laureun ta zerbait geiago urte euskeraz idazten asi ziranian erdal ortografian idatziko eben kontixu; Bidasoa andikoak prantzes ortografian eta emendikoak gaztelar ortografian. Baiña euskerak ba-daukaz auzoko erderak ez dituen otsak eta orduan izango ziran kontuak! Aita Riezu'k diñoan lez gaurkuontzat ezin ta arrotzago zan arein ortografia: «ocshso», guk «otso» idazten doguna ta «vieshszdunik», guk «bitsdunik» idazten doguna.

Baiña izkuntza guztiak dauke bere ortografia ta euskaldunak be euskeraz idazten asi ta bereala asi ziran euskal ortografia sortzen. Orain laureun urte inguru Durango alderdiko Madariaga'tar Pedro kaligrafuak lenengo aldiz emon ei zituan euskal ortografiaren barriak.

Denporiagaz ba-joain euskal ortografia bere itxura artzen, bere nortasuna biribilten. Jakiña, eztabaidarik ez zan paltako, ta bear be ez, eztabaidarik sortzen ez daben edozer, geienetan, gauza illa dalako. Jesus'en Lagundia'ko aita Larramendi eta aita Kardaberatz'ek be gai onetzaz jardun ziran euren idazkietan. Aita Kardaberatz K, X, J ta H'ren arerioa zan.

Olantxe, izki batzuk kendu ta beste batzuk sartu, ezta ta baida, igaro dan mende azkanerako tellatua emon eutsen euskal ortografia etxeari. Jakiña, izkuntzak bizirik dirauen arte bein be ez dira gelditzen eta ortografiak be denboriagaz gitxi bada be aldakuntzak izaten ditue. Baiña gizaldi onetan Euskaltzaindi sortu barriak ortografi legeak emon zituanian zer ikutu gitxi gelditu jakon gure ortografiari.

Euskal ortografian, danok dakigunez, izki bakoitzak bere otsa dau ta ots bakoitza beti izki batek agertzen dau. Ez dago euskal ortografian izkuntza askotako ortografietan lez alperreko izkirik.

Onetan gure aurrekoak burutzu jokatu eben. Tresna edo makiña barria egitera donak aurreko tresnetan izan diran utsak kontuan izango ditu ta utsak zuzentzen alegindu ko da. Ez dau nai izango iñundik be lengo utsetan jausterik. Olantxe gure aurrekoak be; euskal ortografia egin bear ba'zan ortografi zarren goraberak kontuan artuta guztiz erosoa, ariña, erreza eratu eben.

Ez da au geureaganako ondonaiak esan eragindako aozabaltzea, ez. Len aitatu dogun idazlan aretan, errusitar eta turkiatar ortografiakaz batera euskalduna ipinten eban ortografi eroso eredu lez.

Ara bertan, gaztelar ortografiarako ekatzen zituan aldaketak:

oneik kendu	ordez oneik ipiñi
ge	je
gi	ji
gue	ge
gui	gi
ce	ze
cu	ku
v	b

Ta H be kendu; jakiña ordezko barik.

Ortografi legeak emoteko errezoi bat baiño geiago kontuan euki bear izaten dira ta errezoiak alkarren aurka be egoten dira, errezoi batek ola eskatu ta besteak bestela. Baiña kontuan izateko errezoi bat erosotasuna edo praikoa izatea da. Ta gure aurrekoak errezoi au ondo kontuan izan eben. Lenago be esanda nago; S ta Z'ren kontua kenduta bost miñutu naikoa ta geiegi dira euskal ortografia buruan artzeko.

Beste izkuntztekoak be pozik jarraituko leuskueke ortografian al ba'lebe. Baiña ezin tradiziñoaren zama aztunak lotzen ditu-ta.

Ta guk, ortografiarik erosoena ipiñi ta zabalduta gero, besteak be eredu lez begiratzen dautsoela jakinda, nastaten eta zaillagoa egiten asi bear ete dogu?

KAMIÑAZPI

Lau Izkuntzatan

Era uma vez um burro muito sendeiro, que queria por fôrça fazer de pimpão. Êle embrulhou-se muito bem embrulhado na pele de um leão, e os outros animais ficavam aterrados logo que o viam, e êle contentíssimo por os ver aterrados. Passa uma raposa e êle faz-lhe assim: —Huuh! Mas como lhe saiu um zurro em vez de um rugido, diz-lhe a raposa sem mêdo nenhum: —Bem sei! Conheço-te a voz e chamas-te burro!

TRINIDADE COELHO

Izaten dira pertsonak legez
anka bigaz dabiltzanak,
askok eta askok pentsetan dabe
oso dirala gizonak.
Iñor begira eztabenean
oso bestela ei doaz:
lau ankak jarri lurrean eta
euren izate aztoaz.
Berbetan bere egin oi dabe
iñor ezpada mintzatzen;
arrazoiñ onik entzun ezkero
asten dira uzker botatzen.
Arrazoiñari ez jakin zelan
erantzun arrazoiñagaz:
bestela eziñ mintzatu dana,
ostikoz eta arrantzagaz.

LEGUTIANO

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

POZAK ETA KEZKAK

Bilbo'n agertzen dan Astelenetako Orrian, umeak idatzita, euskeraz zeozer ikusteak poztu gaitu. Izenez euskaldun diran umeak izatez be egin dagiez ta benetan aipagarria da lan ori. Zorionak R. M. Azkue ikastolako zuzendari, guraso ta irakasleeri, ta batez be euskera arloan Bilbo'n, aspalditik eta lenengoz asi ziranak diralako...

Baiña gauza batek kezkatu nindun. Ain jator, errikoi ta txukun euskeraz egiten dabenak, nola joskera bako ta atxez jositako euskerea irakatsi? Zer jazo ete zan-eta, arrituta geratu gara: irakasleak barik «atxeak nun ipiñi dakian emakume (ama) batek, lanok makiñaz jartzean atxeak sartu ebazala».

Nun dira irakasleak? Nun gurasoen eskubideak? Ala «euskerantoa» iruntsi bearrekoa ete dabe? Naikoa da!

Zorionak ikastolako ume ta guraoseri... ta kontuz «eskribatzailleekin»!

* * *

Michelena jaunari galdetuko neuskio... baiña alperrik izango litzake. M. Ugalde'k Z. A.'n diñoanez, Errenderi'ko itzaldian argi erakutsi ei eban euskeraren batasunaren bearrizana; zerbait batuko ba'da, arin batu bearra; «batu» aren aurka dagozenen arrazoirik eza ta abar...

Baiña beste kezka bat be, erdi estaldurik, erakutsi ei eban: aditzakin eta joskereakin egiten diran geiegikeri ta ganorabakokeriak... Zertan dago baiña izkuntza baten muiña? H pilloa edonun sartu ta erderazko itzak errezkadan jartzea ete da lortu daben batasuna?

Michelena'k iñoanez batasunerako bideak zabaltzen asi baiño ez dabe egin. Lenago batasun bidean aurrerago joanak, ateak eta leiok be irikita zituezan, norbait baiña komuneko atea zabaltzera etorri jaku, ta besteak itxi. Ori ez da baiña dana: or dabiltz batzuk bere izenean, edo bere izenakin jabetu diran «batu-zaleak» batasuna eginda dagola esaten. «Erdu gure batasunera».

«Batua», eginda al dago, ala ez? Ez ba'lego, zergaitik guzurti geratzen diran orreik salatu ez? Ala euskaltzain bateri entzun dautsen lez: Gazteak beti dauke arrazoia! Batzuk noski. Eta beste gazteak, «batu» orrekin bat ez datozenak, zer?

Michelena'ren jakituria ez da alperrik galtzekoa, baiña bakoitzak ondo jakin bear du, norekin asi jardunean. Gero damutzea alperrikoa izaten da... ta :experimento» orrekin euskerearen bizitza laburtzen ba'da, zuzendariaren errua izango litzake, Izadiaren eta Euskalerriaren aurrean... ta zuzendaritzat Michelena izendatzen dabe batzuk.

Egia dan ala ez, berak esan bear...

PIPER-ZIRI

EUSKERA BIZIA TA EUSKERA BATUA

Asko dira orain euskerea ikasten diarduenak. Euretariko batzuek euskeraz jakinarren ez dakie irakurri ta idazten, euskera kontuan eskolabakoak diralako. 500.000 euskaldun ei gara diñoe. Danok eskolatuak ba'giña gure izkuntzea gaizkatu litzake. Ez geunke orduan zetan euskera batuaren atzetik ibilli bear. Ikasi daigun euskaldunak irakurri ta idazten eta danoen arteko artuemonakaz berez bateratsu yoko genduke, bertsolarien antzera. Zertarako arduratu ordurarte lau katu bakarrik darabillen euskera batuaren arazoaz? Euskera batuan idatziriko liburuak nortzuk irakurri, ta batez be, nortzukin itz egin? GAGOZAN egoeran euskeraren batasuna txakur-amesa dala deritxagu.

Euskerea lenengoz ikasten ari diranai zerbait esatea otu yat. Danok dakigunez euskerea beste izkuntzak legez berba egiteko da. Baiña nogaz? ERRIAGAZ yakiña. Zetarako ikasi euskerantoa erriagaz ezin ba'dozue itzik egin? ERRIA da gure MAIXU'rik bikañena. Onek okerrak dituala? Ba-dakigu. Baiña oker eta guzti euskerak iraungo dau erriak **dagien** bitartean. **Erroman idazle andiak ziran, baiña erriak laterea galdu ebanean, laterea betiko il zan, idazleak yarraitu arren...**

Ez aiztu gazteak irakaspen au. **Zuen alboan ibilliko dira batzuk itz YAKINTSUAK esaten, baiña egi-egia AUXE DA: Erriari zor dautsagu darabilgun euskerea, ez idazleari. Ez dogu onegaz esan gura idazlerik ez dogula bear. Ez orixe. Idazleak berrezkoak doguz erriari laguntzeko. Betoz idazleok euskerea indartu, zabaldu, bizkortu ta osatzeko; baiña guztien ganetik GEURE ERRIAREN EUSKERA BIZI-BIZIA iraunazo ta piztutzeko... ESKOLATU DAIGUN GURE ERRIA 500.000 EUSKALDUN OSOAK EGIÑIK. Ementxe dogu gure** lanik garrantzitsuena. **Ez deritxazu olan irakurle maitea?**

LARRINAGA'TAR GERGORI

EUSKERAZKO «BURU» ONDOKO ERDERATAN

Guztiok dakizuenez, euskerak, norberari dagokion ekintza danean, aditza BURU itzarekin erabilten dau, aurretik bere izen-ordea ipiñita: Neure *burua* ispilluan dakust; bere *burua* il eban, eta abar.

Arritu ez ezik, zurtu ere egiten dira batzuk eta era berean iseka edo parre-keiñua ere egin. Ez da orrenbesterako, gizonak. Beste erdera batzuetan ere alako esakerak erabilten dira ta zuek ez dautsezue parrerik egiten. Ikusazue onako au:

Diego Torres de Villarroel-Vida (cap. V): «Mi cabeza servirá de escarmiento también a los que se curan de males no conocidos».

«Avengonzábanse a ratos de ver sus cabezas peores que la mía, y de que ya no encontraban apariencias, astucias ni gestos, con que esconder su rubor y su incertidumbre» (id. id.)

Homero-Iliasena (cant. XVII, v. 116): «Orain ba-noa, neure buru maitearen (Patroklo'ren) iltzaillea idoro artean» (Akiles'ek).

Gerkerazko izkirik ez dogu irarkolarako-tz, itzez itz euskeraztu ditut olerkari andiaren itzak.

Ikusten danez, gu baiño aurretiago ta groago ere bai, esakera orregaz baliatu izan dira erdipurdiko ez ziran izkuntzak eta idazleak.

Parre gitxiago ta oore apur bat geiago egiozue gure euskerari, mesedez.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

GAZTE

IDEALAK GALDU?

Siñestea, ez siñestea baiño askoz latzagoa dala ba-dakigu. Baiña siñiste baten bearra dogu mundu garratz ontan bizi ba'gara. Siñeste bat bear dogula?... BAI!

Siñesmena, gizontasuna ta nortasuna; ona emen gazte bakotxaren irutasuna. Eta iru indar oneik, idealismoaren oiñarri lez agertzen jakuz.

Gazte askok esaten dabe: «Zertarako idealak eukitea? Oba da Play-Boy baten bizimodua izatea». Eta beste batzuk: «Zertarako sartuko naz bide estu oietan? Nik ez diot iñori kalterik egiten. Utzi niri bakean!».

Olako gazte asko dabiltza gaurko munduan, gaurko gizartean. Euren burua zaindu, euren «jaungoikoan» siñestu, bidegabekeri edo injustiziak ikustean ixildu, igandero Mezara joan, bizimodu lasai batean bizi... baiña BESTEAK OR KONPON DAITEZELA!

Eta ez. Ori ez da zuzena. Ori ez da gaurko gaztea izatea. Olako gazteak, olan bizi diranak, biotz zaartu bat dute, euren zaiñetatik odol lodia dijoa, euren legea au da: pauso bat ez emotea. Baiña euren erraietan ez dago ezer UTSUNEA izan ezik!

Bai; egia da. Idealismoen bideak ez dira diru asko egiteko bideak. Idealismoaren bideetan txakur asko topaten dira; eta askotan txakur oiek kate barik gizonaren gaiñera jauzten dira. Bide mingotzak, idealismoen bideak. Bide estuak, gorrotoz beteak... BAIÑA BIDE ZUZENAK! Egun tamalak, idealistaren egunak. Arnas estuko egunak, biotz miñezkoak... BAIÑA EGUN ITXAROPENTSUAK!...

Idealismo barri zale bat ez ba'jaku sortzen, betiko mundu zatarra izango dogu. Esagutzen dogun mundua. Beartsuak eta txiroak ezer ez diran mundua; makalak betiko zigortuak diran mundua; dirua Jaungoikotzaz artu dauan mundu bat.

Baiña idealismo au lortzea ez da ain erreza. Gaurko gazte asko apelak dira, eta gai oneitan bate ardura barik bizi dira. Egia da —egi tamalgarria—; gaurko gazteak ez gara «kompromiso» edo itun zaleak. Eta benetako idealista izateak, itundutea dakar. Nai edo ez nai. BAIÑA KONTUZ! Askotan itz politeetan bakarrik gelditzen gara...

Eta ori ezin dogu onartu. Itz politakaz mundua ez da konpontzen, egiteakaz baiño. Eta egizko idealistaren bizitza, egite utsa da.

Munduan izan diran idealista guztiak, nekez beterik, euren ikurriña leku guztietaraiño eroan dabe. Euren bizitz osoa arrisko bat izan da. Ez dira beldurtu; ez dira etxean sartu; ez dabe burua aldendu... EZ! Euren idealagaitik bizi dira, euren idealagaitik guda egin dabe. eta euren idealagaitik il dira.

Ez dira ibili leku batetik bestera zer egin ez jakiñez. Ez dira galdu munduko bideetan. Euren idealai beti leialak izan dira; EZ TXERRENAK!

Ez, gazte, ez dozuz galdu bear zure idealak. Beti dago zerbaitikan bizi; beti dago zerbaitikan guda egin. Eta zerbait onek izen bat du: IDEALA, JARRAI-BIDEA.

Eta, kontuz onegaz!, ideal batetik guda egitea EZ DA KOMUNISTA EDO MARXISTA IZATEA! Idealista asko esagutu doguz; Che, Marx, Torres, King... eta abar. Baiña zuk, euskaldun lez eta kristau lez, beste idealista bat esagutu bear dozu: KRISTO!

Bere bizitza, guda bat izan zan. Bere denporetako injuztizi, tarte eta zapalkuntza guztiak salatu ebazan. Eta ideal batetik il zan: GUZTION SALBAKUNTZAGAITIK!

Kristo lez, munduko guztiko espetxeetan idealista asko dagoz; zigortuak, zapalduak. Baiña Moises'en denporan bezela, oiek izango dira mundu barri bateko igarleak. Eta egunen batean galdera zorrotz bat egingo digute gazte guztioi:

GAZTE IZAN BA'ZARA: ZER EGIN DOZU MUNDU BARRI AU LORTU TA ASKATZEKO?

EZKAURIATZA'TAR XABIER

ITURRI BERTSOLARIA

Zenbat bertso eder entzun dautsaguzan; zenbat alkar-izketa sakon gure artean; zelako poz-aldiak eta zelako azken oiñazea, Jose Ortuzar, Balendin gu bion adizkide ona zanaren eriotzea!

Ordutik ona, katea apurtu zalakoedo, ez gara sarri ikusi. Ez nekian zure bizitzaren barri aundirik. Lengo eguncan, izparringian zure zauriarena, Munitibar'ek emondakoa irakurri arte.

Ez noakizu zer eragin izan neban azaltzen, zuk ezagutzen nauzu. Zer esan? Itxaropenik ez galdu, zu beti izan zara sendoa ta bulartsua; zimela baiña gogorra, biotz aundikoa.

Emetik, AGUR'etik, nere besarkadarik beroena, ta irakurle guztieri, bakoitzak al daben neurrian laguntzeko eskari bizia.

Agur ITURRI, jarrai abestuten. Zure landaratxoak, ziur nago, izango dabe enborraren jatortasuna-ta.

JOSU

HIT PARADE

Ez da izan aldaketa aundirik, Biotz-Alai'k bere iru abesti lenengo, laugarren eta seigarren sartu dabezalaren indarra ez ba'da beintzat. Zorion Egileor'ek bakarrik gogor egin dautso, bigarren bere «Bizi Beti Euzkerea» sartuaz, ta orain biribil barri bat kalera. Ez da nor-geiago makala izango emetik Gabonak bitartean, ba...

San Anton'go abezbatza be or dator beste bigaz, eta ona emen, Durango'n lenengoz azaldu daben Euskal-Meza, Barturen Aitaren ekiñaren ekiñez lortze zoragarri batera eldu dana. Meza au ez da edozelangoa, ez beste edozeiñen antzekoa, organo ederrez edo abezbatz bakarrak osotua. Emen datoz organo, txirula, abesbatz, dultzaiña, alboka, Romualda zanaren arraskoa, txistulariak, ume-abotsak, meza-emotaillearena, txalaparta, bertsolariak ta abar.

Entzun ba, danok al ba'dozuz, ta atoz zeure eretxiak azaltzen.

ASTI'TAR

Bizi-biderako Ikasketak

Beti, ikasleak, edozeiñentzat izpar izan dira, etxe guztietako kezka nagusia, ta bakoitzaren esitik igesik danera zabaltzen dan orazoa. Etxeetan orretzaz diardue; batzarretan, kalean, jai-egunetan eta azterketarako garaia urreratzean, gai ez dala edo «no apto» ori daukanen ingurukoen artean batez be.

Guraso askok, ikastola on baten eragiñez ikasketearen garaipena lortuta dagola, errezegi ziñesten dabe. Ta ori egiaren erdia besterik ez da. Ez gara gogoratzen sarri, ikaslea bera dala eragille nagusia. Onen ulermenak eta gogoramenak osotu daikena da lenengoa, danen gaiñetik; ta ortik bakarrik irakaslea irakasle zur lez onartuko dogu. Baiña orrelakorik beteko ez ba'litz irakasleari ezarten dakigu errua; ez ei-daki irakasten. Ikusten dozunez, irakasketea korapillotsua izaten da itxuraz, gurasoen eretxiz eta sarri, berea, benetan dan baiño mutil goragokoa izaten dau-ta.

Ikasketarako almendunak daben erreztasuna, orrenbeste ez diranen artean, ikasketa gogorraren ekiñaldiakin bardintzen alegintzen dira, ta ortik ordu geiagoko ekiñaldiak, euron gogoramen makalagoari laguntzeko. Baiña orrenbestera jarriko ez ba'lira, zurrago jokatuko leukee gurasoak beste bizi-bideren batera zuzentzen aleginduko ba'lira.

Ikastola Nagosiko atera eldu eziñik, bidean geratzen diran ikasleak ugari be ugari dira. Ori ta guztiz be, goi ikasketa, bizi-bide eta jakintsa nagusietan asten diranak asko dira, egunetik egunera geiago ta geiago.

Ikusi daigun emen, nolako egia dan jakiteko, Madrid'eko «Universidad Complutense»'k argitaratu dituan zenbakiak; ikastola orretan izena emon dabenen neurria:

Pilosopi ta Idazkintza'n, 13.097 ikasle; Jakite soillean, 10.002; Sendagintza'n, 7.179; Lege-jakintza'n, 6.029; Sendagaikintza'n, 2.432; Erri-jakintza'n, mailla bitan, 9.814; Abelsendakintza'n, 470.

Zenbaki oneitan era bietako ikasleak sartuta dagoz: egunerokoak eta askeak. Ez dira baiña agertzen or, ingenieru izeneko besteak, au da: Bidegintza, Lugintza, Basa-zaintza, Meatzlangintza, Etxegintza eta orreitakoak.

Ta diñogun guzti onetatik beste arazo bat dator indartsu ta bildurgarri; ainbeste ikasleren artetik, urtero amaitzen dabenak be asko dirala, ta agiria besapean darabillela lanaren billa asi; estu, euren gurasoak geienetan egin daben alegin gogorrari erantzun on bat emoteko alegiñetan.

Gaur, oraindik, lan tokiren bat idoro daikegu, baiña aurrerago zer izango ete da? Ez zan izan aspaldi, orretzaz azalpen batzuk egitean, Lugintza-ingenieru batek —ikasketak zabaltzeko asmoz Ipar-ameriketan izana bera— auxe iñoanean: Bera izan zan ango lantegian, lugintza neurketak egiteko erabillen begiragaillu edo «mira» orretarikoa bizkarrean erabilten eban morroia, ingenierua zala!

Ikasleen etorkizuna gogorra be gogorra agertzen da urriñera, ta bizitza onetako burrukan, beti izan dan lez, atonduena gorengo. Bai, ba-dakigu oraindik be ba-dirala, naizta gitxitzen, aitaren lagunen «laguntasunak» edo erderaz esaten daben «enchufe» orretarikoak be.

ANDURI

NUNDIK NORAKOA XIV

ETSAIAK AMORRUZ...

Euskeragaz asi ba'nintzan, asi nintzan, zoritxarrez... nere ta gure etsaientzat. Ikasgaiak ikasi ta gero, asti-unetan eta ordu galduetan, guztia nere euskerearentzat eskeintzen neban.

Euskal-irakasbidea eskuetan, txoko guztietan nenbillen neure kutunagaz. Acha, jatorriz naparra zan arabar arroputz bat bein eta birritan etorri yatan lagunen aurrean, euskerazko itzak lateratik etozala ia guztiak, esaten. Ta vasco itza edo basoko biok bat zirala. —Lateratik etorrita ere, zer? Erderazkoak bai datozala ta orreik ez dautsoe muzin egiten—. Basokoak garala? Basoko pizti batzuk etxabereak dituzu; beste batzuk, aldiz, giza-jaleak.

Beste bat, Alonso, Gaztela aldekoa, ere urreratzen yatan sarritan, euskal neurtitzak ezerezak eta utsak zirala beti esanaz. Bera olerkari ta idazle trebea zan. Bere itxurakeria itz ederrez zuritzeko, jakiña.

Bitartean, ostikadak nundik etozan igarri neutson eta len baiño gogorrago ekiten neutson beste ikaskaiak buruan sartzeari, iñork esatekorik ez egian izan. Asi nintzan baita ere lagun zintzoak bereizten. Ikastokian eta gelan Gipuzkoa'ko Etxeberria, seguratarra, ta Etxabe, Alzola'koa —ala Kartajena'koa?— nebazan alboan. Eurokaz nere barrua ustu ta lasaitu egiten neban. Baita euskera arloan nebazan ezbaiak argitu ere.

Oraindik gitxi nekian ta nere idazlanak, bertsoak-eta, erderaz egiten nebazan. Alabaiña, ordurartekoak oi bezelakoak ba'ziran, arrezkero Aberria ta aberkideak nebazan beti abesgai. Ta irakurriaz alkar berotu polito egiten genduan, besteen ixillean.

Patiora joan nintzan bein batean; giputz batzuei —areik ez ekien nere barririk— urreratu nintzakien, eta eurakandik alde bota ninduen: maketo arpegira jaurtiaz. Mindu nintzan orregaz, eta egunean baiño egunean euskera geiago ikasten neban, bazkalondoko lo-ordez nere liburuko arietak egiñaz.

Arrezkero ez neban lo andirik egiterik izan. Euskereari ordu batzuk geiago emoteko ta etsaiengandik nola azkatu asmatu eziñik. Txakur amorratuak bezelaxe oldartu yatazan guztiak batera.

Itxi dagigun gaurkoa ta urrengoan ikusiko dogu txakurrak zelako zaunkak eta atzaparkadak bota oi eutsezan Euskalerriari.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra BILBAO - Casco Viejo Tendería, 15 eta 16

KONTU KONTARI

III.- USTEAK USTEL?

Erdal joskera darabilgula? Uste ori be ustela ei da. Alan esan eustan aspaldi dala jaun agurgarri batek. Larogetazak urteak dauskan euskaltzale jatorretariko batek. Onek esan eustanez, gaztelarrak ei dira, euren izkuntzan euskal joskera darabillienak. Euskerea millakaz urteak zarragoa izanik, berorregandik jaso ei ebezan joskera asko. Beraz, gu ez ei gabiz aien joskeran, baizik eurak gurean.

Orregaitik, erriaren joskeran jarraitzeko esate, eustan adiskide zar eta begiko orrek. Eta jakiña, nik ezin beste biderik erabilli; ez arek esan eustalako, besterik ezagutzen ez dodalako.

Amaika alako ba-dabilgu gure artean! «Abeletxe», majadero bat dala? Ez gizona! Esan daigun dan-danok dakigun euskeran: «Abeletxe», kaiku bat dala; «Abeletxe», kirten bat dala.

«Aza tierno tiernoak ekarri dautsutaz». Ez andrea! Aza samur-samurrak! Zertarako nastu ainbestean, guztiok ezagutu ta ulertzen doguna? Erriaren «samurra» baiño plitagoa al-da, erriarena ez dan «tiernoa»?

«Nabo bueno buenoak daukaguz». Jaasaus mutillak! Orixe entzun neutson, ikasketak eginda eukozala irudian giza-seme bati. Ez neban ezagutzen bera, baiña «daukoguz» esan ebalarik, baserriko semea izango zalakoan lotu nintzan, neure arritasunean. «Árbi on-onak, naiz arbi ederrak, naiz arbi bikaiñak». Zertarako baztartu geure-geurea politagoa ta uler-errezagoa izanik?

Ternika-legezko itz barriren bat ontzat artzeak ez nau ikaratzen, baiña etxekoak ditugun itz eta esakun zarreri eutsi egin bear dautsegula, ori da nire eretxi apala.

Azak, arbiak eta enparau txikikeriak darabildazala? Zer gura dozue erabiltea, «bomba atomikea»? Tiira ba! Orretzaz, be, azalduko dautsuet nire aburua. «Atomo» zer dan?: Ikusi ez daiteken eta zatitu ez daiteken izakai bat. (Un ente invisible e indivisible). Orixe ei da «átomo» Beraz, euskeraz: KIZI.

Zuk, irakurle orrek, baten baiño geiagotan esango zendun euskal esakera polit au: «An, ez zan ikusten KIRIZIK be». Orra, zer polito esaten zendun, zeuk ez dakizula, «ni un átomo», KIZILERKI ori asmau baiño len.

Eta... ikusi ez daiteken eta zatitu ez daiteken KIZI orri su-emotea, orixe ei da, gaur guztiok ikaratzen gaitun lerkia.

Jainkoak gordeko al gaitu Nagasaki ta Hiroshima'ko KIZI-ERRETIK. Eta baita be, euskal-arrobiko arri zurixkarekin, kare baltza egitetik.

Ormarik asko baltzitu bai dogu.

ABELETXE

ALKAR IZKETAN XII

EUSKO-ERESIA DALA-TA

—Lengo asteko alkar-izketan eresiatzaz esan einduna, Anton, aintzat artzekoa dala deritxoat. Gai onetzaz zerbait geyago esango ba enduken asko postuko nintzakek.

—Gai orretzaz nik entzun dodana bakarrik yakiat, batez be Aita Donostia ospetsuari. Eta bere eretxia aintzat artzekoa dok.

—Zer iñoan ba?

—Ondiño gazte zala neure etxean egun batzuk igaro yoazan eta barriketaldi baten auxe esan yaustan: «Ni erbesteko eresiak ikasteko beldur naiz eusko eresiak sakonsakon ikasi arte». Bear ba'da eusko-eresiaren zentzuna gitxitu edo ito egingo ete eutson bildur zoan.

—Izan be, belarri ona yaukonari eresia izatzi, pegau, egiten yakok eta berea danari kalte egin. Arduraz ibilli ezik izkuntzakaz be bardin gertatzen dok.

—Olango zerbait gertatu yoakon Azkue yaunari be. Azkue Euskera gauzetan gorengoa izanez gaiñera eusko-eresian be gorengo maillan yebillan. Alan da be, gazterik erbesteko eresi-arauak ikasi ta trebetasuna lortzeko eginituan ikasketak zirala-ta edo, URLO eres-antzerkia atara yoanean gai orretan aituak ziranak auxe esan yoen: Erbesteko teknika ta eresi asko ikasi ezpayoan obeto izango zoala. Atzerrietan ikasitako teknikak, berez biotzetik urtetan yautson eusko eresiari egoak mostu ta loratan mostuten yoazala.

—Orrek esan gura yok bere eusko-gogotik urteten yautsonari yarraitu ba'yautson askoz obeto izango zoala.

—Ortik atara geinkek, norbereak diranak ondo ikasi barik erbeste eresiak ikastea kaltegarri izan leitekela, bertako azia erbesteakoakaz nastau ezkero nastautako landarak urteten yoen lez.

—Orixe dala-ta, nik uste yoat, atzerriko eresiak geuregandu aurretik, geureak ondo zuztraitu bear yoguzala.

—Orretan yabizenak ardura andiz yokatu bearko yabek, naste negargarri bat sortu ta ango ta emengo barik gelditu ez gaitezen.

—Bai, osterantzean neuk ezagutu ñoan baserritar bateri gertatu yakona yazo leikiok.

—Zer yazo yakoan ba?

—Ba, Ameriketara yoan bai, ta ekian euskerea aztu ta ez ekian erderea ikasi barik etorri. Entzutekoa edo obeto ez entzutekoa izaten zoan aren izkuntza barregarria.


—Orduan Txomin Agirre'k «Kresala'n» aitatzen yoan «indianoaren» antzekoa izango zoan. Baiña au urrengorako itxitea obeto izango dok.

—Neu be orretan ñagok, ordua be aurrera yoak eta.

—Agur ba. Y. I. datorren asterarte.

—Agur eta ondo ibilli.

URIGOITIA



TXORI BATEN GOGOETAK

(Jarraipena) Agiñalde'tik

Ogerleko ospetsua astean birritan Abadene'ra doa bere lagun eta gidari ikertzen, bai ta ama bezelakoa daukan Andere maratzaren itz maitekorrak entzutearren. Gero, etxekoekin Abadene'ko ospe aundiko porrusalda gozo-gozoa yaten dau, apaldu barik urten daitela ez dabe itziten-eta. Bere aparia ordaindu bear dauela aitzakiaz, Ogerleko'k yan-gai batzuk berarekin beti dakarz, eta oneri eskerrak, Abadene'n ez da orain leengo goserik ezagutzen. Apal-ondoren, Yoseba'ren ustegabekeriren bat ustiatuaz, Ogerleko'k euneko txartel bat lapikoan sartzen dau, ta gero pozez beterik, ama-semeagandik agurtzen da. Yoseba'k ba-daki euneko txartelarena ta ez ikusi egiten dau, iñolako poz aundi bat bere biotzean sortzen yakola, ta zorionezko une oneitan otoitz ixiltsu batez eskerrak emoten ditu, lagun zintzo batek bere bizitza argitzen dautsolako.

Bai, gure errian Yoseba'k pakea, zintzotasuna, ta erritarren oniritzia aurkitu ditu, leen bidegabekeriak egindako zauri sakona aaztuten doakiola, baiñan geien irabazi dauena gure erria da. Yoseba bezelako abade bat, benetako zoriona da edozein errirentzat, eta adiarazteko zailla ba'da bere, zerbaitek gure erria bestelatu dauela esan leike. Nik esango neuke, bizitzaren naigabe ta garraztasunen artean, alkarganako maitasuna, orain iñoizkorik errazagoa dala.

Gogoeta oneik amaitzean, ezin dagiket Yoseba'ren ama aaztu. Zorionekoa Andere bezelako ama bat dauena, ta ainbeste ezbear ezagutu arren, zorionekoa gure Euskalerria be, Abadene'ko etxekoandre bezelako ama ugari bait-ditu...

AGIÑALDE'KO TXEPETXA

ERROTETA-MATXIÑ

Osagillea izan da Erroteta-Matxiñ jauna. Osagille ona. Oso ona.

Idatzi be egiten izan dau, noiz beinka. Irakurle ta idazle aparta izan da. Nork ez dau ezagutzen Erroteta-Matxiñ idazlea? Or dagoz bere liburuak, besteak beste.

Udazken onetan ez doiala uriburura, esan dauste. Errian gelditzen dala, Gabonak artiño beintzat. Gurasoen etxean. Goiena'ko Jauregibarri etxean.

Irakurri eta irakurri ibilli da aurtengo udara-udagoienetan, Jauregibarriko baso zabaletan.

Idazten asi da orain, egunokaz.

Ikustaldi bat egiten joan naz Goiena'ra. Jauregibarri'ko liburutegi zarrean aurkitu dot bera, Matxiñ, idazten.

—Ez ator Billbora ala?

—Ez, ez. Ez eta pentsau be ez.

—Zer darabilk ba?

—Ezer be ez. Emen gelditzeko gogoa etorri jatak. Idaztea gura juat.

—...?

—Emengo bakardadea gura juat idazteko. Besterik ez. Orixe dok dana.

Mundu guztitik ziar ibilirikoa da Matxiñ adiskidea. Gaztetatik asi zan joan-etorrietan, itxas-ontzietako osagille.

Asko idatzi dau bere urteetan. Erderaz eta euskeraz, bietara. Erderaz geiago. Askosaz be geiago erderaz: Gaztelaneraz eta prantzeraz batez be.

—Ez dok uste barik arturiko asmoa. Gogoan ondo erabilli ta gero artu juat erabaki au. Euskeraz idatzi bear juat batez be emendik aurrera.

Orixe esan dausta, eta poztu egin nau, baiña ez dautsat ezer esan.

Ixilik gelditu naz apur batean.

—Orainarte erderaz egin juatelako ez jaukoat damurik, ez orixe, baiña euskeraz egin bear juat emendik aurrera, gaztelaneraz eta prantzeraz eginarren noiz beinka, alanbearrean aurkitzen naijouanetan.

—Datorren Gabonak artiño orduan, Matxiñ.

Euskal liburuen bategaz etorriko jaku Erroteta-Matxiñ, okerrik ez ba'da eta Jaungoikoak gure ba'dau gure.


Itxaroten gelditzen gara.

ÑAPUR-ZARRA

ITZ-EUNDUAK

(XIX)

Etxebarria'tar Juan Anjel



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Janari.—B: Jan ordu.—D: Geitu.—E: Dago (a. a.); Konsonante; Konsonante; Artu (a. a.).—G: Aterpe; Berbadun.—I: Nik ez (a. a.); Arutzagoka (a. a.).—J: Oiñetako neurri; Ardaoa (sorkaldean) (a. a.).—K: I, berbera (a. a.); Bokal; Konsonante; Dago.—L: Iguindu (G.) M: Lau aleko.—N: Soin atal bat (a. a.).

GOITIK BERA.—1: Alako (laburpen).—2: Eretzi.—3: Oraingo giroa.—4: Agakada'ko bigarrena (a. a.); Konsonante; Bokal; Almena.—5: Ugari; Lasai (a. a.).—6: Sugar; Untxi.—7: Zabaldu (G); Aren antzeko.—8: (urrengo konzonanteakin) Berba; Konsonante; Bokal; Artuizu.—9: Margo bat emon.—10: Umea.—Agur, or...

XVIII'aren agerpenak:


Zearretara = Job.—Tutea.—Medarra.—Je; A; R; rO.—Senar; Okiña.—eoD; Zar.—Ibitu; ikozI.—aB; K; R; Ne.—Eriotza.—utreL.—Uin.

Goitik bera = Sei.—Jeoba.—Mendibe.—Te; A; T; rU.—Judar; Ukitu.—Ota; Ori.—Berro; Irten.—Ar; K; K; Zl.—Arizona.—Oñaze.—Ari.

ASMAKETEA

(X)

Garatea'tar M. Luisa



ZELAN DERITXO IBILTOKI ONI?

IX'aren agerpena: **Buruzagi bikain bat.**

KIROLAK

GIZON BAT

Aundia ta luzea, mardul-giartsua, Begiargi, papar-zabal, biotz on batentzat lekua. ONORIO!!! an Lete deika gure gizon jator oni!

Agirregabiria'tar Onori'k be izan izaten ditu bere estu-aldiak, ta ez Gorla'n bakarrik, bazkaritarako deituak baiño geiago agertzen direnean; orrelakoak zuzentzeko aiña ta geiago da.

Bergara'n eta Antzuola'n galdetu egizu Onorio au nor dan, ta ez uste izan aundiki, pinpirin, esku-leunik aurkituko dozunik. Itxuraz, gordiña; begirada baten garratza be bai; bere begiak «zer nai dok» diñoela dirudie. Bostekoa latza, langillearen eskua, beroa ta arrera onekoa baiña.

An joan giñan bere billa, baita aurkitu be lanetik urtetzean. Ta zeatz-zeatz jakin gaur aipatzen dogun bere ekintza baten barri.

Estu-aldi bat izan eban lentxoago, Urbia'ko zelaian. Oñati'ko mendigoizale batek min artu ta arin, baiña geldiro ta bigun, eroan bearra izan eban. Esku-oe kamilla bat bear ta, bai ei zan alako bat bertan, ondo gordea baiña, giltz-peko ate bi bultzaka zabaldu, ta ormara burdin-ziri lodi batekin lotuta egoana azkatu bearrean aurkitu zan, bitartean zauritua miñez eta oztuten; ta an ez zan besterik, ez berogarririk ez sendagairik.

Etxera itzultzean, artega ebillen Onorio, ez baiña orretan gelditzeko asmoan. Asi zan batari ta besteari deika ta eskatzen, zozketa baten bidez be zeozer lortu eban.

Ta ara, Urril onen 3'gnean Urbia'n izan dan jai zoragarrian, Onorio'k «Justa»'neko aurrean dan txabolan (uda-aldian, ostatuan bertan) kamilla eder bat ipiñi dausku, ta manta-berogarriak, zauri loturak, sendagaiak... min, biurri, eten edo trokatzeak lenengoz egokituteko bear diran eskuartekoak; amar milla bat laurleko danera, ta Lasa Aitak Urbia'ko baseleizan bedeinkatu ondoren, an geratu dira. Danak agirian, bear izan ezkero edozeiñek errez erabilteko giroan. Zauriturik iñoiz ba'litz barriz, ez dau neke, otz edo estu-aldiegaitik okerrago izatera etorterik; lenengo laguntzea antxe bertan izango dau.

Ta Onorio'k auxe diñosku: Erabilli lasai an diran gaiak, ez baiña alperrik, ezta zikindu be ezer, besteren batek bearko ditu-ta.

Ta guk auxe geiago: Andik zoazanean edo ortik zerbait artu bearrean ba'zara, begiratu naikoa gelditzen dan. Ez ba'lego, urrengo zoazanerako zeuk be zerbait eroan anai ez-ezagunen bati laguntzeko.

ONORIO!!! Eup!

ZIOLATS'DAR IXIDOR



IBILKERAK ETA LEIAKETAK

IBILKERAK.—*Lenago be esana dago, mendizaleak mendi gaillurrera abiadan igon eta abiadan jatsitzea baiño beste zerbait geyago be egin bear dabela, mendian ainbatek egiten daben antzera, euren ibilkeretan, mendiko txangoetan, asko edo gitxi baiña beti zerbait, jakintzarako ongarri izango litzakena bete. Batez bere eusko-mendigoizaleak, bertako semeok ezagutzen ez doguzan aztarran eta ezkutu asko dogozalako gure lurraldeetan. Eta sarri esaten dan lez, zenbat eta obeto ezagutu Ama-lurra, ainbat obeto maitatutzen da.*

Gu beintzat eretxi ortakoak gara-ta, oldozmenok buruan genduzala, Iraille'ko igande batez goiz-goizetik urten giñan beste lau gaztegaz —tartean zazpi urteko illobatxoa zala— Euskalerria'ren zatia izan zan Errioxa'ko Ezkarai aldera, ta Demanda mendidiko «San Lorenzo» 2.262 neurkin goiti dabezan gaillurra igota, bere inguruetan diran euskel-izenez beteriko, oraindiño, erri ta errizkak aurkitzen diran alderdi areik ezagutzeko asmo biziaz.

Edonork dakian lez, ezin legike egun baten gauza aundirik egin, baiña al danik geienean gozatu genduan aldia, inguruetako izenak, baserritarren abizenak jakiñaz, oneikin izketalditxuak egiñaz ta abar. Ortaik ikusi gendun ez dirala errizka ta lurraldearen izenak bakarrik, euskal zuztraiko abizen asko be aurkitu geinkez an, bertako biztale artean; beraz, euren zaiñetan, oraindiño, eusko odola dabillela erakusten emonaz.

Bai, euskal-izen ugari da an, eta eurotariko batzuetatik ibilli gintzazan, pizkat lasterka ba'zan be: Zorrakin, Zaldierna, Azarrulla ta abar; ta zetan esan bez, Ezkarai bera ta Urdaneta edo Urdanta. Baiña, ez dogu eurotariko baten be «h»'rik ikusten, orreik aurkituteko «San Millan»'eko Lekaidetxe'ra joan bear, or aurkitzen ei-dira euskeraz idatzitako argi-bide zaarrak; latera kutsuan idatzita dagozanen billa joan bearko genduan eta orretarako ez genduan, egun bakarrean, araiño joateko astirik izan.

«Atxerik» ez arren, atxak edo arriak aurkitu genduazen, baiña «San Lorenzo» gaiñean, erazki (filtro) baten bitartez laiñotartean atera gendun argazkian ikusten dan legez, beste gauza aundirik ikusi ez ba'genduan be laiño aren erruz. Urrengoan obeto, Jainkoa'k nai ba'dau!

LEIAKETAK.—*Ba-dira urte batzuk, Algorta'ko «Itxas-gane» mendigoizale talde gazteak mendirik-mendiko ibilketa-neurtuak urtero antolatzen dabezala, ta aurten be, Urrille'ko irugarrenean ospatu eban, lenagoko urteetan baiño ospe andiagoaz, aomen andia lortu dau ibilketa-neurtu orrek-eta. Lareunen bat neska-mutil izan ziran oraingo ontan; gaztedi ederra benetan, inguru areik alaituteko naikoa zana!*

Urrilla'ren 24'gnean, Algorta'ko enparantzean, ibilketa ortako sari ta garai-ikurren banatzea izan zan, ta ori zala bide, euskal-jai polit bat ospatu zan bertan: lau dantza talde, neska ta mutil, bertako txistulari-batza ugaria ta apaiña, Bizkai'an onenetarikoa bear ba'da, ta eurori laguntzearren-edo, beste ainbeste erestaldi bikain ta abar etorri ziran. Ba-dakite «Itxas-gane»'ko mutillak gauza on atsegingarriak gertatuten, bai orixe! Gure zorionak eurei.

ALTUNA'TAR JOSU

GITARRA BIDEZ

Gizona egaz doa. Noraiño joatea nai ete dau? Zelako bideak artzen ditu elburura eltzeko?

Iñork ataltxo au irakurten ba'dau, zu zara nire lagunkide ta zugaz alkar-izketa bat egin nai dot. Nire barruan daroadan kezka au agertu nai neuskizu ta zugaz batera illuntasun au argitu.

Gizona bide barriak zear doa. Au berezkoa da. Beti era batera bizi ta nai jokatzea ituna, tristea da. Biziaren bizitasunak eskatzen dau barritasun egoki bat egitea. Ori ez egitea, atzerantz joatea litzake. Ta orduan, nun legoke gure buru-argitasunaren eginbearra... Nun gure biotza ta gure izatearen indarra?

Geure almenak konkortuta egoteko agertu al giñan bizira? Baiña onek jakiturizko jokabidea ez dirudi. Zer egin bear da orduan? Indarrak bizkortu. Erantzuera ederra da. Baiña ni zarra naz, esan leikee askok. Alan da be, lagun nagusi gizontsuak diranak gaurkorako eretxi egokia emon legikee.

* * *

Gazteak dira berez, biziari eutsi ta aurrerapidea emon bear dautsenak. Onen gogo bizkorra ta indar azkarrak gertu egon bediz ba, bizitzeari dagokion eran, oneri, aurrera, bultz eragiteko.

Aldi onetako barrikuntzetariko bat kitarra bidez abestutea dala deritxot. Aurrerapidea dala be, bardin, esango neuke, gaurko gaztediari bere izakereak ori eskatzen dautso-ta.

Leku askotan ta lagun ugariak jarraitu dautse, ondoren, gitarralari azkarrari. Gazte onek euren zeregin bat dabe aldi onetan gizartean. Asmobide onak zabalduagaz, on aundiak egin legikeez errietan. Gazte batzar bat ez dago gitarra barik. Gaurko bizia ta askoren arteko umorea agertzeko era bat gitarrea da.

Gitarra bidez agertzen diran abestien esan-naiak indartsuak dira edozein tokitan. Askok kontuan artu dabe abestuera orren indarra. Jokabide orrek, oraingoz, aurrera egingo dau. Ta errien onerako izan dedilla.

* * *

Gauz bat datorkit burura une ontan oso indartsua, zuri, adiskide orri, esan bear dautsudana. Esatera natorkizun au, geure kristiñau erriaren onerako dan ezkero, gogoan artuko ba'zendu, gogoz txalotuko zindukedaz.

Euskalerriko ermita jai ingurura, jai antolatzailleak deituta edo deitu barik gitarralariak eltzen dira. Abeslari bakotxak darabil bere leloa buruan ta lelo orren erara berba egin eta abestuten dau erromerietan.

Ainbat zabalduta dagoanez jendearen artean, bai emen, Mungia'n ta baita emendik kanpora, eleiz doiñuz baliatuten asi dira, beste propaganda batzuk errietan sartzeko noski. Baita berba bidez siñismena galduerazoteko diran irakatsiak entzun dira. Oso nabarmenak.

Euskaldun kristaua, zure gizontasuna naastu ta zure siñismena ondatu nairik, zure auzoeran dagon ermitako zelaira iñor eltzen danean, zeure eskubidea dozu, zuregan dozun gizontasuna ta siñismena zaintzea. Gazte, zeure gizontasunari ta siñismenari, beti ta beti, eutsi. Bai, ori bai. Gizon eta siñismendun eta euskaldun.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

ERRI-DANTZA

ERRUSOERAZ = BERIOZKA

EUSKERAZ = URKI

Gure zuaitzen artean izen ontakoa ezaguna dugu. Ez da oso ugaria gure mendi ta lurraldeetan; baiñan bai nabarmen eta bere ostro txiki errikara ta enbor azal-zuri zillar antzadunaz. URKIA arbola polit eta lerdena. Geienetan bakarka ikusten dugu soroak mugatzen; eta oso gutxitan saillean. Europa ipar aldean, berriz talde aundietan baso baztergabeak betetzen ditu. Alemania, Polonia ta batez ere Errusia'n zuaitz dontsua da BERIOZKA deritzatena.

Ez da arritzeko errusitar dantzari-talde ospatsuena BERIOZKA izenaz ezagutua izatea.

Dantzari-talde edo Ballet au ikusteko egokiera orain gutxi izan genuen eta benetan goi-mallako ikusgarria dala aitortu bear.

Ez da alako dantza-jaialdi ederrik nun nai sumatzen aal. Errusitar gizonezko dantzariak: kalindar, kosako, ukraniar eta emparauak mundu guzian txalotuak izan dira beren jauzi, oinkada, ta gorputz liraintasuna agerturik. Errikoi dantzak goruntza jaso dituzte. Dantzari giartsu, eta zaratatsuak baldin baite!

Emakumezko dantzariak ez diote batere zorrik; ez dira atzean gelditzen. Oraindik geiago dirala esango nuke fintasunean, jantzi eta apainketan. Auen soin eta besoen igidura, plastika ta estetika goitarrena osatzen dute. Margo-bizitasunez eta argien dizdiraz emakumez-taldea aingeru biurtzen da, ortzadarraren izpiak diruditela.

Onelako da BERIOZKA dantzari-taldea Nadiezhda Nadiezhdina andrearen zuzendaritzapean URKI adarrik ertitsuenak eskeintzen dizkigutela.

Mosku'ko Bolsoi Teatroan lortu zuten lenengo garaipen aundia 1948 urtean. Estokolmo'n berriz 1959'n urrezko pake-domiña saririk bikañena eman zioten.

Geroztik, 25 urte auetan munduaren zear eten gabe dantzan dabiltza. Goresmenik beroenak opa izan dizkie Italia, Beljika, Prantzi, Alemani, Inglater eta Ameriketako U. S. A. kritikari adituenak. Onek adierazten digu BERIOZKA dalakoaren balioaren neurria. 18 dantza-agerraldi ez berdiñak ontzen dituzte, zein baño zein yayoagoak. Batzutan biñaka edo irunako lanean ariko zaizkigu; besteetan giza-seme edo emakumezkoak bakarrik. Baiñan azkenerako beti talde guzia jardungo da irurogei dantzaritik gora antzezlari diralarik. «*Siberia'ko Artza-Eiza*» eta «*Kosako-dantza*» nagusian bezela. Ezin diteke asma jolas altxagarrigoarik: doñu ta musika errikoiez lagundurik, balakaika, akordeoi asposoñu, txistu ta beste jostagalluz kanta-kantari bukatzen dute. Dantzari ta musikari izanez gañera abeslari ditugu eta aberastasun izugarria ematen diote ikusgarriari.

Oro-barne, guzira jo-ta, esan dezagun BERIOZKA Errusia'ko Folklore talde berezi bat dala Ertiaren gallurrera dana. Ez dago geiago eskatzerik; eta ozenki aitor bearra dago Errusia aldeko erri guzien omenez. Europa ta Ameriketako iri nagusietan, aurreratuta daudela uste dutenotan ainbeste «ballet», kaskar, txoro, lizun eta naskagarri ez diranean, U. R. S. S. talde au eredutzat artu bear dugu. Ikusgarri ernegarri, txukun, alai eta antzetsua edozeñek pozik ikus dezakeana.

Euskaldunok, gure txikian erri musika ta dantzetan aberastasun aundia duguna aspaldidanik ezaguna da. Folklore bide ortatik aurrerapen ugaria egin dugula ezin uka diteke.

Aipa dezadan erakusgarritzat galdu berri dugun OLAETA'tar SEGUNDO (G. B.) ospetsua, gernikar jatorra «*ELAI-ALAI*» talde eta beste dantzari-saillarekin mundu guzian euskal-dantzen bikaintasuna oso goian jarri zuana.

Zorionez aren eskolak ikasle anitz izan ditu. Gaur egunez dantza-maisu ta dantzari talde ederrik gelditzen zaigu gure erriko dantzak, zaar eta berri, aztertzen eta obetzen diardutenak. «*Goizaldi*», «*Argia*», «*Udaberri*», «*Oberena*», «*Oldarra*» dantzari taldeak... besteak beste. E'a «koreografo» artean Arraras, Urbeltz, Arze, Zabala... G. Barandiaran eta Jon Oñatibia, izen batzu besterik ez aitatzeagatik.

Guzioi, eta batez ere aazturik utzi dituzanoi nere gorasarre ta adiskide agurra biotzez bialtzen diet.

Gure gazteok jarrai dezatela euskal dantzak lantzen.

Eta bukatzeko, asmo bat: «*BERIOZKA*» errusitarrentzat dana, gure artean *URKI* ostro ikarati ta zillarrezko azaldun, adar eta kimu berriz ornitua biur dedilla.

ANTONIO M.ª LABAYEN

Oarra.—Lantxo au bukatutakoan Orexa'ko Errian Etxaga Mikel erri gizonaren omenez egindako jaialdi polit batean izana naiz. Jai ortan, lenengo aldiz, Orexa'ko gaztediak OÑATIBIA Jon'ek antolatutako ERRIDANTZA deritzan irradako berri, eder eta errez bat dantzatu zuan. Baztan'go Mutil-Dantzaren antzekoa baiñan neska-mutillek dantzatua. Katalandarren SARDANA bezela guzion artean dantzateko asmatua izan dana. Ea bada gure jaialdietan zabaltzen dan ERRIDANTZA berri au.

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

AZKUE'REN IZTEGI AUNDIA

Barriz argitaldua ale bitan. Lengoak eta 5.000 itz geiago daroaz, Azkue jaunak arrezkero batuak.

HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE BIZCAYA

E. J. de Labayru'k idatzia. Zortzi ataletan barriz argitaldua. Lengoak eta egilleak galdutzat eukazanak bere ba-dakarz.

ANNALES DEL REYNO DE NAVARRA

Zortzi aletan au. Moret eta Aleson'ek idatzitakoa.

CANCIONERO POPULAR VASCO

Ale bitan. Azkue jaunaren bilduma ikusgarria; gizon orren lanari eskerrak, iñoiz galduko ez diran ainbat abesti ta doiñu.

REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS

Ogetabost ale. 1906'tik 1936'gn, urterarte Euskal-jakintzan gorenengo izan ziranen lan garrantzitsuak.

DICCIONARIO HISTORICO GEOGRAFICO DE PAIS VASCO

Ale bitan, 1802'gn. urtean REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA'K argitaldua. Gaur erdi galduta dagozan izenakaz aberastuta.

NOTICIA DE LAS COSAS MEMORABLES DE GUIPUZCOA

Iru aletan barriz argitaldua au bere; Gorosabel eta Etxegaray'k egiña.

TA BESTE IDAZ-LAN GARRANTZITSUAK

Eskatu «La Gran Enciclopedia Vasca» ra.

Apartado núm. 1.510. BILBAO

BERTSOLARIAKAZ

Egun pozgarria, benetan, iruogei bat bertsolarigaz urrillaren 12'an igaro nebana. Lekaidetxe baten, errez aditzekoa da zergaitik.

Goizean, amarretan meza santua, Bertsolariak unerik gurenetan euren barruko igarletasuna, bakotxak bere erara, agertu eben. Eleiz-gizon baten berbaldi sakon bat.

Gero ikastaldi bat: Euskal-bertsolaritzea nondikoa eta zelakoa izan dan agertu euskuen. Gaia sakonegia, bear ba'da, baiña gai oneik entzutea beti jaku onuragarri.

Urrengo bazkaria eta, bertsolarien artean oi danez, alkar-izketea. Gauza ederrak eta txalogarriak entzun genduzan.

Onelako edesti labur bat, batez be izenak kendu ezkero, illa da. Baiña egun a pozgarria izan zan.

* * *

Agertu ziran, baita, iru samintasun mingarri be.

Lenengoa «Iturri», bertsolariaren egoerea. An egoan bera, bere gaizo-burdian, garritik berakoa lotuta ebala. Gure irakurleak, uste dodanez, geinak jakin dakie zelako miña artu eban berebilen alkar-jote baten. Lau seme-alaba txikiak ditu eta, jakiña, lanerako gauza ez dala dogu gure «Iturri». Beretzat izan ziran, bertsolarien itzik beroenak. Zenbat ikusi nituan begietan negarra ebela, bere adiskideen artean! Aundia benetan bertsolarien biotz-sakontasuna. An izan ziranen eta izan ez ziranen artetik «Iturri»'k laguntza ugaria izango daualakoan nago. Eta ondo irabazita dauka laguntza au: bertsolari oso errikoia ta erritarra da gure «Iturri».

* * *

Neure aldamenean egoan beste bertsolari on bat: Jose Mari Artetxe, Zeanuri'koa. Onek, oindiño aldi luzea ez da ordutik igaro, eztarrian osaketarako urraketa bat egin bearra izan eban, eta abotsa galdu dau: mingarria, benetan, bertsolari batentzat batez be, abots barik geratzea. Eta zelako eroapenaz daroan gure Artetxe'k neke aundi au! Gizon adoretsua da benetan!

* * *

Eta gorputzeko neke oneik baiño txikiagoa ez da, bear ba'da, bertsolaritzeak berak gaur aurkitzen dauan giroa aurkitzea. Mingarria benetan! Pozik entzungo leukez gure Erriak, len lez, bertsolarien doiñu ederrak: jaiai eta batzarrai alaitasuna eroango leuskie, baiña... egun argiagoai itxaron bearrean aurkitzen dira.

Erriaren jakintzea, batez bere literatur-alderdia indartzeko bide ziurra dira bertsolariak. Beste erri batzuetan be orrelan izan dira eta gure Errian indar geiagoz ekandu sakona, ta atsegingarria Erriarentzat dan ezkero, baiña plazetan eta gizartean agertu ezin diranez, liburuen bidez euren barruko trebetasuna ta erri-jakintza agertu bearko dabez. Ez da bardin, egia da, baiña al danean al dana.

* * *

Arazo oneik gogoan genduzala eguna igaro ondoren, geure errietara biurtu giñan. Gure barruan alde batetik poza, alkartzean emoten dauan alaitasuna, eta beste alde batetik samintasuna ta atsekabea ekarri genduzan. Baiña itxaropena galdu barik, urrengo alkartzerako giroa obetuko al jaku.

OLAZAR MARTIÑ'EK

EZKONDUAK ABADE? BAI ALA EZ?

Aspaldikoa da ekiña ta ortxe kalean dozu. Baztarretan zabal-zabal dabil. Nun-nai ta noz-nai. Jakintsuen artean eta jende ze-zearen artean. Jardun eta jardun.

Ezkonduak abade egin? Olakorik...! Entzunda bakarrik, mire eginda geratzen dira asko. Ez dago, baiña, zetan miraritu. Etorriko balitzakigu, ez geunke barrikeri zantar bat izango.

Jesus'ek berak orixe ber-berori egin eban: ezkonduak aukeratu abade izan eiteza. Pedro Deuna, beraren lenengo ordezko izana, ezkondua izan zan. Ta beste apostoluak? Oneik be ezkonduak izan zirala batzuk ba diñoskue. San Paulo'ren esan onetan oiñarritu gura dabe euren eretxia: «Ez ete dogu gure ibillaldietan ARREBAREN bat eroateko eskubiderik, beste apostoluak eta... Pedrok lez?» (1 Cor. 9, 5).

Elizaren lenengo iru-lau gizaldietan ba ziran abade ezkonduak. Ezkongak eta ezkonduak, bietarikoak ziran. Ta Sortaldeko Elizak, Erromakoagaz bat eginda dagonak be bai, ezkonduak abade egin dauz asieratik gaur arteraiño. Zer dala-ta ezin daikegu biar edo etzi beste orrenbeste egin, munduarentzat onuragarri badadi ta Elizak ontzat emon badagi? Emen ez dago ezer arrigarririk. Ezta Elizarentzat galgarri ta ondagarri litzaken ustelik be. Zergaitik, ba, buru-eraginka ta aitarenka ibilli, onelangorik iñoiz eta iñun jazo ez bailitzan? Ez, ez! Eliza aspaldi-aspaldikoa dogun ezkero, beraren urte luzeetan ainbat jakingarri daukaguz. Munduaren ibillerak, ostera, ta Eleiza mundu oni egokitu bearrak ekar daikeen aldakuntza izan daiteke.

* * *

Etorkizunari begira bagakioz, emendik urte batzuetara, Elizaren luze-zabalean, baita gure errietan be, ezkonduta bizi diran batzuk abadetzarako aukeratuak izatea ba daiteke. Ta itxura dagonez, orixe jazoko da, antza.

Abadegairik-eza aundia ta larria da leku askotan. Ego-Ameriketa'k berreun milloe bizilagun ditu. Abadeak, barriz, urri baiño urriago. Espaiñia'k daukazan baiño askoz geiago ez. Ta mende au joan orduko, bosteun edo zazpireun milloe izateko bidean ei dago. Zer egin? Ainbeste ta ainbeste kristau abade barik bertan beera itxi? Ta ori, Kristo'k berak egin ebana ez egitearren? Eliza guztian leenmendetan eta Sortaldeko Elizak gaurdaiño egin dauana ez egitearren? Ez dot uste onangorik egin daitekenik. Ezkonga diran abadeak izatea baiño leenagokoa ta premiñazkoagoa dogu kristau-alkarte bakoitzak bere abadea izatea, ezkonga zein ezkondua izan.

Abadegairik-ez au ez da Ego-Ameriketa'ko arazoa bakarrik. Elizaren zabalera guztikoa da, gutxi-asko. Oraintsu abadegaiz gaiñezka genkusazan abade-mintegiak, beingo baten ustu egin jakuz. Geure erriotan berton zer ikusiko ete dogu edo ete dabe beste ogei-ogetamar urte orduko?

* * *

Elizak noz-edo-noz onango erabagirik artu balegi, ez litzateke abaderik-ezaren utsunea zelanbaiten betetzeko bakarrik izango. Ezkonga diran abadeak bear aiña izango balira be, ezkonduak abade egiteari egoki deritxoe askok. Or doguz oiñarriko kristau-alkarteak edo «comunidades de base» deritxenak. Etorkizun dogun Elizaren jokaera ta izaera ortxe izatea ba daiteke.

Eliza berez lagunarte edo alkarte bat dogu. Ta anaitasun beroa ta atsegiña damoskuen lagunarte txikiak doguz gaur gogoko. Ez doguz jendetza aundiak aintzat artzen norberaren nortasuna ito ta galdu-azo egiten dabe-ta. Gure egunotan gizonak NORBAIT izatea dau opa, ez askotzaren erdian galduriko ZERBAIT mirriña ta utsa, ezertariko eginkizun eta erantzukizun barik. Biziera au geroago ta zabalagotuz doakigu familian, lan-arloetan, baita Elizan bertan be. Oraingo gure alizok edo batzar-leku luze-garai-zabalo eguneroko eliz-bearkizunetarako alboratu egitea etor dakiguke. Lenengo gizaldietan egin oi ebenez, talde txikietan alkartuko dira kristauak, lekuan lekuan sortu daitekezan talde txiki ta ugarietan. Onango taldetxoak etxeetan-eta izango dabez euren batzarlekuak. Jokaera au munduarentzat jatorrago ta eragingarriago, ta bata-bestearentzat beroago, anaikorrago ta emonkorrago gerta daiteke. Ta onetariko talde bakotxak zelango gizarte-mailla dauan eta alantxe eratuak izatea be ba leiteke, anai-arteko giro epel eta txeratsu ori errezago geureganatu dakigun.

Onelango kristau taldeak ugarituko balitzaz eta bizi-molde ori nagusitu, egokiena auxe litzakela dirudi: talde bakoitzak bere barrutik urteneko ta bere bizibidean murgilduriko abade edo eukaristiagillea izatea, ez erbestetik edo beste giza-mailla batetik etorria. Izan leitekez, beraz, langille, itxasgizon, sal-erosle edo beste bizibide bati toturik bizi diran abadeak eta bizitzako zer guztietan taldekoen kideko diranak.

Biziera onek be, jakiña, naiko gora-beera ta arazo ekarriko dautsaz Elizeari. Alan da guzti be, sortu daitekezan korapilloei askabidea emoteko beste argi ta adore izango dira Elizan, Jainkoa lagun.

PUXANA

Bermeo

Gure erriko jaiak amaitu ondoren, Canarias aldera urtero egiten dogun saioan urten gara etxetik. Jai kontuan, oso penagarriak izan dirala esango dot, euskal giroko gazteentzat. Gure gauzetatik onena Andra-Mari egunean izan gendun: Bermeotar abeslariak goiko enparantzean eta Estitxu ta Zorion Egileor lameran gabaz, baiña gauza bera gertatu zan leku bietan: mikrofonoak txarto.

Estitxu kanturatu zaneko ixildu zan mikroa; jendea zarataka. Arazo onetan bermeotarrak txapeldun garala uste dot, ala ta be, mikroak bardin ta Estitxu'k agur esanda alde egin eban, ta an amaitu zan dana.

Gero, Galdakano'ko Andra-Mari taldea ta Romo'ko gaztetxuena, ori ta Bermeo'ko ta Mundaka'ko txistulari batzuk batu ta apurtu arte txistua jo. Orreik izan dira, lagunak, udaletxekoak antolatu dauskuezan euskal gauzak errian. 16.000 euskaldun bizi garan errian, alan eta guzti bere, gure euskal nortasuna agertu zan ugarian.

Illaren 19'gnerako, errizale talde batek, umeen euskal-jai bat egiteko baimena. Erri guztia pozik, 1.200 ume taldeetan bertara etortzeko zirala ta etxe guztietan prest umeok artzeko. Atzenengo orduan, zigor bat lez, ezetza. Zurtuta geratu zan erria, baiña olango gauzak ikusten azala latz daukagu, ta jaramonik be ez.

Urtero lez, Gabon illera arteko sasoia beteten Canarias aldera eldu gara. Gu gure aberritik kanpora garala jakitean askok pena aundia artzen dabe, baiña nere ustez urtetze onek ez dau gure nortasuna sendotu baiño egiten. Emen ezagutzen doguz beste errietako anaiak, batez bere ondarrutarrak; alkarregaz bizitza bardiña egiten dogu, alkartzen garanean an diraz gure abestiak ta gure euskal-zaletasuna arraintza kontuak albora itxita.

Gureko geunke Euskalerri'ko erri guztientzat, Arrecife'ko kaleak entzuten dabezan euskal abestiak eta euskerea entzutea. Urrengo arte!

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Arratia

AUNTZ-EUSKERA.—Gaurko barri oneik (itzak eta putzak) Arratia'ri dagokiozanak ez dira, baiña bertoko altzarte baten abaroan izan neban biozkada zoroak bultzatu nindulerik aspaldi basterturik neunkazan aldizkari ta irakurgai arloteak irakurtera, emen doakizuez arratiarren jakingarritzat, baita bere, Euskalerri osoarentzat, euskera-erderaren sasi-ezkontza indarkerizkotik jaioak izan diran sasikuma ugariak.

Zabaldu, ba, begiak, eta jarrai... al badozue, azken «ultimo finerarte», «sentidu absurdoaren kausak», «trajerietako trajeria bat», «absolutugintzan frogatutako soluzionea», «estratifikazio kontzientzi ideolojikoa», «sekso militantearen kontzientzia historikoa», «progresasioaren atentziozko forma elementala», «protesta, errebeldi, mugimendu eta klase umilaren momentu estratejikoa», «klarki analizatu bear diran propagandako liburu eta errebistak», «guda mundiala eta karakter indibiduala», «planifikasioa markatzen dun fenomenoa», «demokrazi modernoaren lejitibismo modernizatua», «autore aislatuak oprimiturik duten kapazitatea», «komentarioen zapore eta konfidantzan kausitzen dan informazioa», «sabiduri failoaren kortesia manerak», «deliberamendu inplikatuak frenatu», «sinpleki anparatu, sostegu ta esplotatu», «usantza pratikoa libreki probokatu», «istante presentean liburu manuskritoen errealitate propioak», «eskema pratikoak kaso jeneraletan partikularki esplikatzeak», «afekto, sentipen eta borondatearen poderios noblesiaren testimonio personala», «abar eta abar», «inportant», «kontrast», «konplet», eta onein irudizko makiña bat itz ba-ditut metatuta nire «Prensa Bulegoan». Irakurleak «ok» egin ez dadin baiña, amaitzea, bukatzea obe deritxot oar onekin:

Batasunaren izenean batukeriaren ardatzean inguruka, laztanka ta zurikerika dabilkiguzan marrazkilloen (caracol) «kausari» «kasu» egingo bageuskio, geu izango gintzakez, eta iñor ez besterik, gure Erri ta ondasunen zapuztzaille, etxekalte ta iltzailleak.

LANDAJUELA'TAR A.

Ibaizabal aldetik

ETXEBARRI.—*Kementsu diardue erri ontako «Danok-Batera» bazkunekoak, euskal giroko kiroletan eta jakintza gaietan. Lenengo peloia txapelketa on bat antolatu eben. Jokatu ebenak, Bizkai'ko onenak izan ziran, zaleen maillan jakiña, ta ospe andia lortu, notintza andia erriratu zan-eta. Urrengo, erriko jaien eralguntzaren alde sartu ziran eta bai euskal kutsuzko jai politak antolatu be. Eresi ta euskal abestietan be ez ei-dagoz geldi, ta orain mendigoizale talde bat be gertatu nayan zintzo dabiltz, eta ziur gagoz sortu al izango dabela, kenmentsu asiak dira ortan-eta. Gaztediari soinketa pizkat egiñarazoaz batera, mendiak zear ibilli ondoren, gure lurralde maitagarri onen ikusgarri guztiak erakutsiko dautseez.*

Ba-dira baita gazte euskozaleen artean, euskal ikastola bat sortu nai dabenak be, ta ori izango litzake gazte adoretsu orreik, Etxebarri'n egin legikeen eginkizunik goralgarriena. Zelan doya ikastolatzazko asmo bikain ori, Isidor?

GALDAKANO.—*Bilbo'ko Baserri Azokan, Bizkai'ko Aurrezki Kutxa'ren babespean eta Galdakano'ko «Peña Santa Cruz»'ek eraldutako zizaezti leiaketan, garaipen andia lortu eben gure erritarrak.*

Ogeita bi talde edo banako, izan ziran perretxiko erakusketa ortara euren mordotxoak aurkeztu ebezanak. Eta danetatik lenengo saria «Peña San Cruz»'ek lortu eban; bosgarrena bertoko «G. A. Ganguren» mendizale bazkunak, baita talde onek beronek be irabasi aurkezpen onenari eskeñitako lenengo saria. Ta bigarrena, Uriarte'ren Barrena'tar Gotzone andere erritar azkarrak.

Galdakanotar lez, benetan poztu gaitu erritar ziza-zale guztien garaipenak, baiña batez bere, «Ganguren»'goak lortu dabena benetan pozgarria izan yaku, aurten aurkeztu diralako lenengoz orretariko leyaketara. Ta ez giñan arritu, bai baiña poztu «Peña Santa Cruz» garaille ikusteagaz, bein baiño sarriago, orretariko leyaketetan txapeldun izanak diralako. Beraz gure zorionak guztieri AGUR onen bitartez, ta nere beroenak «Ganguren»'go mendigoizale laguneri.

GAIXORIK.—*Aldi mingarria igaro ondoren, egin dautsoen osatebakuntzagaitik, barriz bere etxean aurkitzen da, oraindiño makal samar, Irusta'tar Miren-Karmele, «Bar Txiki»'ko etxekoandere argi euskaltzalea. Poztuko gara, emakume zintzo ori guztiz sendatuta bere zeregiñean laster ikusteaz.*

EZBEARRA.—*Egun batzuk dirala, ezbeartxo bat izan eban Usansolo'ko Uriarte'tar Koldo euskeltzale jatorrak; bitxabala zear bere berebillean joala, laprast egin ei-eutsan eta solo batera jausi, baiña zorionez, ez berak ez eta bere emazteak ez eben zauri andirik izan. Poztuten gara, Koldo, orretara izatea, ta aurrerantzean zure berebillai «ikusten» ba'dautsazu soloak zear ibilteko zaletasuna, ipiñi egiozuz txirringa berezi batzuk eta dabillela berak nai daben «bideetatik».*

BASA-JAUN

Basauri

ERRIKO JAIAK.—Urrila'ren 9'gnean Pausti Deun'aren jaiak, erriko nagusienak asi ziran, eta aurten lez jarraitzen ba'dabe, asi diran bidetik, Bizkai'ko onenak izatera iritxiko dira laster, bai ziur.

ASTE NAGUSIA.—Burdintza-ibilketa ta talde guztien aurkezpenakaz asi zan, eta egintzarik urtenenak —zaarren eguna, umetxoena, taldeena— izanik, danak gozatu dabe asko ta ondo.



Illaren 12'gnean Basauri'ko Elerti-ikaskintza Saria, Udalak sortua, ospatu zan. Eun anei —100.000— laurleko ta idazlana argitaldutea, sari ederra berau. Amar idazlan aurkeztu ziran eta saritua Lasa'tar Joseba Iñaki pantzeskatar aitaren «Jauregi ta bere aldia» (Jauregi y su época) idazpurutzat daroan idazlan mamitsua izan zan. Asmakizun goralgarria Udalaren au, erriko jakintzari eragin dautsona. Jakintza leiaketa onek, aurtengoa ederra izan ba'da be, datorren urtean eta urrengoetan garaipen andiagoa lortuko dabela uste dogu.

Gauza bat ez jakun izan atsegin: Jakintza gaiko elerti-sari garrantzitsu bat, berau izan dan lez, irabazleari jolas-areto baten orren maillako saria emotea. Basauri'n ba-daukagu orretarako areto oberik edo egokiagorik. Ori ta guzti be, Lasa Aitak bere euskeltasun sindoa erakutsi eban saria artukeran; eskerrak emotean euskera txukunean egin euskun itz, naita bertan ziran askok ezin ulertu, ez direlako iñoiz ikasten alegindu. Gure zorionik beroenak, Lasa Aita.

ABESTIAK.—Gizarte igelezketan, Cine Social'eko aretoan, Asi-barrien II Euskal-abesti jaia ospatu zan, eta asko izan ez ba'ziran be, bost abesti talde aurkeztu ziran, eta euroi saria emoteko, onenak zeintzuk ziran aukeratuteko, alderdi batetik, bakoitzak bere autarkia emon bear eban notintza aundia izan zan, eta bestetik maikoak edo epaikariak emongo ebena. Ta onetara izan ziran sarituak: 1.—Bilbo'ko «Korronta» taldea; 2.—Bermeo'ko «Itxastarrak».; 3.—Derio'ko «Elaiak»; 4.—Santurtze'ko «Zuri-Baltzak», eta 5.—Ondarru'ko «Jose ta Carlos».

Baiona'ko Pagola'tar Manex be izan genduan gure artean, ta guk be berari entzuteko zoria; gure artean ezaguna dogu berau. Jai erdiko atsedenean eta amaieran, Gaztelu Elexabeitia'ko Leon albokari ta Maurexi arrasko jotzaille alaiak egin ebezan euren jo aldiak, bertan zan oztetza guztia pozez gaiñezka ipiñiaz. Esan dogunez jai politak izan doguz bai aurten, eta obeak be errez antolatuko dira urrengoan, beraz gure eskabidea onetxetara letorke: Erri-agintzan eta jakintzan ardurea daukenak jarrai dagiela Erriak daukan jakintza egarria asetuten.

Il orren 17'gnean «Aste Andia» erakusgurenezko dantzakaz amaitu zan: amabi talde dantzatu ziran eta egualdi euritsu samarra izan ba'zan be, ez zan okerrik izan jai eder ori ospatzeko, bertaratu zan notintza andiaren aurrean.

Ager-erazi bearrekoa, «Edurre» taldeak egin eban lan goralgarria, dantzaketa erakusorokor orretan ta aurreskuan eurok izan ziralako eragille. Baita «Laguntasuna»'k egin eban lan bikaiña be, euskal-abesti jaia gertatzen. Gure zorionak basauritar jator guztioi AGUR onen bitartez.

OSTIKOKETEA.—Aste baten barruan, «Baskonia»'ko ostikolariak garaitza bi izan dabez, bitan jarraian jokoaldiak irabazi dabezelako. Orretara irauten ba'dabe, txapeldun ziur. Ea ba mutillak, jo ta ke!

KOLDO

Bilbao

UDA LUZEA.—*Uda-zaleak etxeratze-egikizun a, gaztelerazko «operación retorno»'a osotu ondoren, uriko gurain arazo txit indartu yakuz. Etorri ba'dira bere baiña, or doaz barriz udazken zoragarri ontako igande ta aste-amaitzeetan. Ta aurten bear izan ez ba'ditue be, inguruetako errien jaiak onar etorrera a luzatu ebenekaz, zerbait besterik ezean dastatzea otu iat.*

Joandako Irailla ortan, Bizkai zabal-barnean jai gogoangarriak izan genduzan: Lekeitio'ko Sanantoliñak, Lejona ta Bermeo ta beste errietako Andra Mariak... Eyurreta'ko Mikel deunarenakaz amaitu bide. Baiña Plentzi aldean izaten dodazan lagunekaz gogoraturik nabiltzue. Beste amabostekoan opor-aldiak luzatu ebezan Antolin Deun'aren jaien barri bidebatez zuoi emonaz.

Deun onen aurregunean iñolako oztetza nasa parean lotu zan arratsaldean, ta gazte adoretsuak buru zirala, ardao-zaragi suspertzaille bategaz, Gorliz'ko Andra Mari'ren baselizaraiño abiatu ziran; txistulari, auspo-soiñu ta ainbat erri-kanpoko laguntzaille ebezela. Ta oitura zarrari jarraituaz, an zaragiaren ta Antolin Deun'aren irudiaren truke-aldaketea egin eben. Biaramonean irudi au, ibildeun gartsu elizkoi baten Plentzi'ko Elizaraiño, jaiak amaitu arte, eroan eben.

Arratsalde bertan sekulako erromeria, ta zaragiari zirt-zart egitea adiñekoak, gazteak eta... umekondoak eurak be txastatu egin bear, ta ondoren, ardaoa bakatu ba'iaken be, ez iji-uju, santzo, irrintzi, abesti ta alarioak.

EGAZKIN - ZELAIA.—*Lendik Sondika'n daukaguna txiki, estuegi geratu iaku, ta barriztatzea egoki iatorkula aitortu bearra dogu. Bilbao barriari dagokionez, egazkin-zelaiari iru bider geiagoko egikizuna urte gitxi barru eskatuko iako. Ots, Iraztegi-refineria dala, Kai zabalagoa, Basauri-Beobi'ko bidezabal berezia, Europa'ra begira izatea, Lejona'ko Ikastetxe Nagusia... abar ta abar. Bilbao ito bearrean geratuko iaku, uri-urtebide egokiagoak asmatzen ez ba'dira. Ta zergaiti batzuk kontuan arturik egazkin toki barri bat bear dogu.*

Nun billatu orrenbesteko lur lauak? Bizkai'an, etxerako oba; Araba'n, Gipuzko ta Naparroagaz erdi-bana; Kastro'n, Euskalerrientzako baztartuegi. Gabon aurretik toki onetzaz ziur jakingo dogunez gagoz. Zein asmo izango ete dabe eragingarri?

TXURRUTALARIAK. — *Zazpi-kaletako txurrutalariak, azken urteetako oitura dan lez, egunero Pelota kalean datzan Begoña'ko Ama'ren irudiaren tokitik igarotean euren txanpontxoak irudiaren aurrean itxi oi dituez, ta urtean bein Urrilla'ren 11'gnean Begoña'ko Ama Neskutza'ren egun berean, gabeko bederatziretan omenaldi polit bat ospatu.*

Aurten be, lagun taldea gogo-biotzez bertaratu zan. Txurrutalariak batetik ta erri-zeia, atso-agurez, gaztez, umekondoz osoturikoa bestetik; erri-jai politenetarikoa. Urtero batu oi dan dirua, Santa Mariña'ko gaixoentzat da. Aurtengoa be bardin.

Santiago Eliz-Nagusi'ko abade-buru, ta txurrutalariekaz batera, ekandu onen sortzaille dogun Mezo'tar Epifani jaunak itz bero-gartsu batzuk egin ondoren, erri guztiak ao-batez, «Agur Erregiña» abestu eban. Aren ostean, urteburuan il diran guztiakatik «Gure Aita» bat otoiztu, ta kaletar elizkizun txiki au amaitu bide, «Agur Jesus'en Ama» euskera errikoian eresi. An baturiko jendetza, kale estu medarrak izan arren, ugaria benetan.

Gerora, erromeri txiki bat izan genduan, txurrutalariak ostera aspertu baga euren eten bako ibilladia edaritegi zear beti lez burutzen ebela. Gure ardao-edale porrokatuak laister asi jakuzan datorren urterako txindi pilloak gertatzen. Zeruko Ama'ren omenez dan ezkero urte askotan orrela jarrai. Beti be Ibaizabal'eko ura baiño ardoa oba!

ARREGI'TAR JOSU

Arrasate

IKASTOLAKO BATZARRA. — Urrilla'ren 22'an ospatu zan urteroko Batzar Orokorra, La-Ikastetxeko Aretoan. Oztetza polita batu zan.

Batzarrari asiera eman ziona Azkarate'tar Yon, lendakaria izan zan. Beronek, argitasun guztiakin, aitzen eman zizkigun igarotako urtearen gertakizun guztien zertzeladak. Egin diran lanak: aurrentzako gela barriak eratu, ikastola oraingo Lege barrian menpean sartu, ta diru-kontuaren zertzelada zeatz eta garbiak aurkeztu euskuzen. Danok, ao-batez, ondo artuak izan ziran. Luze izango litzake bere agerpen guztiak emen zeatz agertzea lekurik ezdogu danetarako-ta. Baiña esan bearrean naiz Azkarate lagunaren agerpen guztia oso ondo artua izan zala. Neuk ere esan nezake aspaldian ezdudala entzun ain gogozko euskera garbi ederrean egiñiko itzaldirik. Zorionak Yon laguna.

Urrengo Arruti'tar Xabier irakasleak, oraingo Eziketa-Lege barriaren zertzeladak aitzen emon zizkigun. Luzea izan zan bere agerketea baiña jendeak arretaz entzun zuan. Berak esan zuanez, gaia euskeratua ba zuala baiña samurtzearren zati batzuk erderaz esatera beartzen zala. Ala egin zuan eta bere esanaldi guztia sakontasunez betea izan arren entzuleak ederto ulertu zuan. Beronek, emetik aurrera izango dan eziketea, argi ta garbi erakutsi euskun. Aor gure umetxuak ikasi bear izango dituzten ikasgai garrantzitsuak. Edozeiñek ikutuko dautsie gure neska-mutikoei zudur-puntan, ainbeste jakintasunen jabe egiten diranean! Eta dana euskeraz kutsututa!

Urrengo, Etxebarria'tar Xabier apaiza, mintzatu zan, emetik aurrera, Eleizaren ordezkari izango dana Ikastolako batzordean. Eta zer esan beronetzaz? Ain zuzen eta egoki arteztu euskun gure umetxuaren kristau-eziketea, danak arretaz eta ao-zabalik entzun geuntsan. Ikusten da gai ortan oso jakitun dugula gure apaiz au.

Bai ditugu gure Ikastolatan gizon baleiotsuak eta esku onean uzten ditugu gure umetxoak. Baiña betiko leloa esan bear: gure andereiño eta irakasle yayoen eskuetan eziketa guztia izan barik, ETXEAN alegindu bear dugula lenengo eziketea emoten, bai erlijioa, baita euskera erakusten ere. Orrela mintzatu zan On Xabier jauna bere.

Batzar onen zertzeladak emotea luze izango litzake, baiña auxe esan bear dut; aurtengo ikastaro onetara 117 aurtxo barri sartu dirala, ta guztira 395 aur izango dirala, oraingo ikastaroan. Azkenik onetxek izango dira emetik aurrera Batzordea osotuko dutenak: gurazo aldetik; Etxabe'tar Gergori, Lasagabaster'tar Iñaki, Balzategi'tar Alberta, Garai'tar Estepan, Lasa'tar Mikel eta Arregi'tar Joseba. Bazkide laguntzalle aldetik; Azkarate'tar Yon eta Mendizabal'dar Josebe. Orregaz gaiñera bi irakasle, bi ziñegotzi (concejal) eta Eleiz-ordezkari bat izango dira.

Eta orain bukatzeko auxe: Asi-barri dogun ikastaro ontarako diru kontuan ordaiketa au izango dala: 2.800.000,—pesetarena. Au ordaintzeko euskeltzaleak alegindu bearko dute euren sakelak zabaltzen, ikastoleak urtea zor barik bukatu dezan. Ea ba-da al-dozuten euskaltzaleak, erakutsi zuen biotz ona EUSKERA'ren alde. Batez ere asko al-dezutenak.

ERIOTZA. — Jaunak Beraganatu du Odriozola'tar Juana, Eguren'en alarguna, bere bizitzako 71 urtegaz. Goian Bego. Atsekabean laguntzen dautsegu bere seme-alabeai eta beste senide guztiai, batez ere Barrutia'tar Yosu suiñari, AGUR onen arpideduna.

UDALAITZ

Elorrio

Joan dan Urrillaren 3'gnean, oiñengo Elorrio'ko Errebonbilloak *ikusi ditu. Orain lareun urte agertzen dira urtero, Agurtza Andra Mari egunean.*

Oitura ori zelan sortu dan? Ao-jakintzaz dakigu elorriotar gazte batzuk Lepanto'n turkarren aurka irabazi zan gudara joan zirala. Elorriotarrok etxeruntz garaille etozala, Kanpanzar mendi-bidetik euren erria ikustean, berau ta erritarrak agurtu ebezan zupin-agur salbakaz. Ordutik aurrera Urrillaren lenengo igandez (Agurtza deunaren igandean) goizgoizetik zupin-agurka ibiltzen dira. Gero, euren Mezea izaten dabe. Eta batez ere, arratsaldean, Andra Maria'ren irudiagaz kalez kale ibiltaldia egiten danean, amabost gazte euren antxiñako jantziakaz, izkilluakaz eta txistulariak soiñu berezi bat joten dabela emen agertuten dira ta Andra Maria'ren irudia igarotean supin-agurra egiten dautsoe. Eleizkizuna amaitzean eurak berak erriko enparantzan aurreskua egiten dabe. Baita tiroka ugariak be entzuten dira.

Oitura polita ta ikusgarria berau, baiña batzuk diñoe oitura ori kendu egin bear dala, gudazaletasuna agertzen dalako. Nik, ostera, olakorik ez dot uste. Orain jai ori bakezalea da. Ta bere zeregin bakarra Agurtzaren Andra Maria goraldutea. Esan geinke baita folklore utsa dala.

Gauza batek arritzen nau: Elorrio euskaldun erri bat izanik, errebonbilloen buruzagiak agindu guztiak erderaz emoteak. Agindu orreik euskeraz emotea ez ete-litzake egokiago izango? Egia da, Elorrio'n millaka erdeldun, ortik eta emendik, ogia irabaztearren etorritako erdeldunak bizi dirala. Etorteko eskubidea dabe, baiña ez ete zuzenago eurak ere erriratu ta euskalduntzea?

Euskaldunok Lepanto'n, Flandria'n, Alkazarkibir'en, Italia'n Ipar eta Ego-ameriketan, Pilipiñetan eta abarren, geure Kristautasuna ta zintzotasuna zabaltzen ibilli garala, baiña bitartean geure errian, geure izate ta sena asko galdu doguz. Elorrio'n bertan ere orixe jazo da. Lenago txikiagoa baiña politagoa zan erri au, erri-alboetan erlauntziak dirudien etxeak egin diralako. Lenago txikiagoa baiña kristauagoa zan, orain kristau oiturak asko galdu dira. Lenago txikiagoa ta euskaldunagoa, orduan ona etozanak, zibillen seme-alabak ere, euskerea ikasten eben, bertako guztiak euskerea mara-mara erabillelako. Ta orain bertako askok be euskereari iguin eta puf egiten dautsoe, euskerea txarra ta ezertarako be ez dala usterik.

Batzuek itzartuten asi dirala entzun dot. Ta antxiñakook orregaz poz aundia artzen dogu. Orrelan erri orren edesti bikain eta garbia aurrera eroango dabela uste dogu-ta.

Errebonbilloak baita gure erriaren izateak aurrera jarraitu begie.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

EUSKAL - ERRITIK BEGIRA

Urteroko Nobel Elerti-sariketan, Chile'ko olerkaria dan Pablo Neruda izan da saritua. Biotzez emondako zorion ugari izan ditu; «diplomatikoak» bere bai batzuk.

* * *

Nobel Pake-saria Willy Brandt'entzat izan da. Onegaz be beste orregaz lez jazo da. Baiña Suezia'n eta Noruega'n askatasuna izan.

* * *

Kennedy'k Irlanda «bien» batasuna eskatzen du. Ulster'eri «Viernam Britanikoa» deitu dautso. Zoriuntsuak jatorriz Kennedy bezelako gizonak dituen erriak!

* * *

Erroma'tik munduaren aurrean Kolbe polandar Aitaren santutasuna erakutsia izan da. Paul VI'a bera izan da maiburu. Auschwitz'eko nekealdian Kolbe Aitak bere bizitza beste errikide baten ordez emon eban... baiña Hitler'en alde be mezak emoten dira noizik bein; bearko ditu, baiña olako asmoakin bai ete? Nork ulertu gizadi au? Euskaldunen artean be, buruzapal areik ba-eukezan lagunak. Orain lotsatuta baiña... «intelektualak»!



* * *

Txina andia ONU'ra, aurreko atetik; Formasa kalera. Ez, ez da izan Formosa, or diran txino txikiak baiño. Formosa'ko erri azpiratuaren alde ez da izan autarkirik, danenak aurka.

* * *

Txina barrura, ez baiña USA'ren gogo aundiz, ezta Errusia'renakin be. Sartu da eta ludiko oreka-bardintasuna aldatu. Orra bereala, edo aurretik, errusitarrak neurri barriak artzen. Kanada'n lagun billa; Prantzia'n zerbait geiago; ara ta ona begira eukazan izkillu izugarriak lekuetatik aldatzen. Ona, ara ta bestera begira jarri bear. Gudarik ba'letor ala gudarik izan ez dadin?

* * *

Kanada'ko Ottawa uri buruan, Kosygin'ek estu-aldia jasan du; magiar-ungaritar gazte batek atzetik eldu eutson, joteko asmoan aurki. Gazte onen senideak Ungria'n erailduak izan ziran, komunisten bakearen pean.

* * *

Inglandarrak Europa'n ta gu ez. Konserbadoreekin barrura, orain laboristen zain gauzak zuzentzeko. Au ez da izan sakea jotea besterik, entzun bearrak entzungo ditugu; itz baiña, zati baten mutututa jarraitu bear.

* * *

Ipar-ameriketarrak alperreri laguntzen aspertu dirala dirudi; alperreri ta esker-txarrekoeri euren ustez. Diru billa nora orain? Ala dirurik ez ba'da lanean asiko ete gara ba benetan, jango ba'dogu erri atzeratuak? Lanetik datorkie an euren aberastasuna, danen lanetik. Or dago dirutza ta ez aundikerietan.

BEGI-BI

LUDIKO LANGILLEDIA TA IRLANDA

Gogor xamar mintzatzen nintzaizuen nere aurreko idazki batean Ipar Irlanda edo Ulster'en egoeratzaz. Baiñan astintzen genuana, arazo onetaz munduak dakarren ixiltasuna zan.

Oraingo ontan, baiñan, etorri zaigu txit poztu gaituan berria. Beljika'tik datorkigu, sindikal erakunde baten aoz: CMT (Confederación Mundial de Trabajo) eta bere zatia dan europar erakundeak diona, itz leunagotxoaz ere gutxi-gora-beera guk genion berbera dio: egoera negargarri ori ekonomi, sozial eta politika osaketan oiñarritzen dala, auek indartzen dituztela errikideen arteko ezberdintasunak eta bereizkuntz kaltegarriak.

CMT'ek dionez, Europa'rako bere Erakundearen aoz, erlijioaren borroka aitzaki bikaiña dutela egitazko arazoa estaltzeko. Eta arazoaren egia erritar batzuek beste erritarrak menperatzea dala. Erri berean batzuek nagusi eta beste batzuek oinpean, erri eta gizon bezela, bizi dirala.

Eta, onetaz, CMT'ek gogora dakarkigu bere Oiñarri Agerpenean, Araudian, eta 13'garren atalean garbi aski diola «txartzat jo eta zapuztu egiten duala edozein inperialismo mota, naiz talde batek bestea explotatzea, edo gizaki mota batek beste gizaki mota».

Ontan, langilleen sindikatoa dalako, eta orregatik langilleen abots, ba-dirudi ekonomi eta langille menpekeria salatzen dituala. Baiñan aurrekoan genion bezela, ongi dakuste ere arazoaren oiñarria politika arazoan dagoala, kaiserkerian eta erri-menpekerian.

Eta onegatik Englandar Gobernuari larritasunezko deia dagio. Izan ere irlandarrei erantsi dien menpetasunean bai-datza arazoaren mami guztia. Azkatasun ezaz baliatu bai-ziran, Inglaterra nagusi izateko eta Irlanda morroitzeko. Eta azkatasun ezaz irlandarrei kendu bai-zizkioten bere gizartearen aberastasunak, eta beartsu izatera erakarri, beren ondasunez besteak bertatik egiñik. Batzuek, arrotzak, goi-maillan ipiñi, bertakoan bearturik beartsu beren exkaxia lorrean eraman zezaten.

«Dei larri bat dagie CMT'ek alde bitakoei, batezere englandar gobernuari, arkitu dezaten lenbaitlen arazoaren bukaera, ipiñirik orretarako liraken ekonomi, sozial eta politika legebideak Baita gizarte zuzentza, beekoei bizitz maillan igo aal izateko bideak errezturik. Eta legez eta izatez berdiñak izan ditezela biztanle guztiak Ipar Irlanda'n».

CMT'ek politika arazoa ere ba-dala aitortzen duanean, egiz zuzentza-ezaren iturria englandarren, edo bere morroi englandarzale protestanteen eskubide gabeko jabetzan sumatzen dute. Ain ziur arazo guztiak Inglaterra'k Irlanda'ri aberri azkatasuna kendu zion egunetik aasten bai dira. Eta aberri azkatasun eza ori baldin ba'da pakea gaiztotzen duan pozoia, sugeak ozk dagigunean bezela, zaurian bertan egin bear da egin bearrekoa: ebaki, pozoia ken eta benetako sendabidean ipiñi.

Baita gogorkeriak ere salatzen ditu. Alde batekoak eta bestekoak. Erri nagusien indarkeria, eta bere etxe jabe izan naiean murgildurik dabiltzanen gogorkeria. Gogorkeriak ez dakar iñoiz gauz onik, ekarri ez zuan bezela englandarrek antziña batean erabilli izan zuten gogorkeriak. Gogorkeri berau izan bai-zan gaur txukatu eziñik dabiltzan negar ixurkiaren iturri.

Nola nai ere munduaren ixiltasun negargarri onetan langilledi erakunde batek bere abots indartsua altxa duala ikustean, gu, eusko langilleok, poztu egiten gera eta bein edo bein arimaren erorialdirik nabaitu izan ba'dugu, ostera itxaropenetan jartzen gera langilledia ez dagoalako lo, baizik begizabal bazter orotara, zuzentza-eza dagoan bazter guztietara.

Englandarren esku dago, beraz, Ulster'ko pakea. Ainbeste aberri azkatu diranean, gaurko Europa'n Irlanda bezela lotua arkitzea lotsagarrikeri bat da. Dagokion azkatasuna ba'damaie, bertanbera amaituko da darabilten borroka.

Eta mundu onetan arazorik gabe izatea eziña dalako, Irlanda azkeak-bereak izango lituzkenez, etxean, sendi artean konponduko lirake, elkarrekin negar egiñaz atsekabe aldietan eta elkarrekin poztuaz egun zoriontsuetan.

UXOLA

IKASTOLAK, GURASOAK, ANDEREÑOAK...

I

Gai zaarra dakarkidana; baiña, kontrako indar metaketen berri eman nai ba'da, gero ere sarritan berriztu bearko dena.

Aspaldian argitaratu nituan nire kezka batzuek. Arrazoi nuela edo ez, nereak eta bi entzun ere bai, inpernuko milla demoniñok ez-ba-du! Ala ta guztiz ere, lengo lepotik daukat burua. Geroak arrazoi eman nauelako, leen baño kemen geiagorekin gañera. Entzunak-entzun da ikusiak-ikusi, isilik egotea, ikastoletako gurasoei saldukeria egitea deritzat. Ekintz ori, beste batzuei dagokioe ta ez neri.

Isilik egonean, batzun-batzuk pentsa lezateke, alegia, aurkako aizeak irauldi ote gaitun edo koldarkeriz mutututa ote gauden. Ez bat eta ez beste. Aize burrundara aundiagoak pasa dire baiña, gure dorre ttikiak zutik iraun du. Eta izaniko burruketan, dorre bikaiñagoak eraitsi dira.

Alkar ezagutzen dugu, eta ez gabiltz erraiñu atzetik. Ba-dakigu nora ta nola dijoazen. Orregatik gurekin topo egin dute ta orain agert-arazi egin bear ditugu.

Leen, eta nire aldetik, ordea, etxe barneko autsak astintzen asi bear naiz.

«Ikastolak, perretxikuak bezela sortzen ari dira», idatzi da bein ta birritan. Eta gauzak nola diren! Pozaren-pozez ematen zen albiste orri, geienetan, begi-zearka begiratzen nion. Lagun artean aitatu dut bein baño geiagotan, alegia presakei gebintzala. Eredu bat bear zela. Ikastol bat sortzerakoan, aurretik, beste arazo batzuetzaz pentsatu bear zela. Iruña'n, oraindik illabete gutxi, Paz Ziganda ikastoleko batzorde ta gurasoei itzegiten nitzalarik, ori bera esaten nien. Plan bat egin bear dela. Ez dugula beia baño len uztarririk ekarri bear. Bestetik, ikastol berriak zabaldu aurretik, geien nun komeni den ta zeatik jakin bear direla. Eta, azkenik, geroko izakizunari begiratu bear zaiola... Orrela itzegitean, Gipuzkoa'n gertatzen dena nebilkin nire baitan.

Ikastol geiegi iriki da Gipuzkoa'n! Nun etzen iriki bear? Ni ez naiz nor ori erabakitzeko. Leen ere galde izan naute, «ta ik, ikastola sortu nai duten erri bateko gurasoei, nola esango diek ezetz?». Ez, ezin nezaioteke olakorik esan. Baiñan, ala-ta guztiz ere, ezin orrek ez dio nire arrazoiari indarrik kentzen.

Ikastol geiegi iriki dela esan dut. Eta ala ere, ez da bat bakarrik sobra! Neroni ezetzten naizela? Ez, irakurle, ez. Jainkoak, irakurtzen jarraitzeko pazientzirik ematen ba'dizu, erraz ulertuko nazu.

Ikastolik ez da sobra, nai etzen errietan zabaldu ez delako. Guraso batzuek *ala nai zuten tokietan jaso dira. Eta emen argi ikus daikegu, ikastolak* erriarenak *ez direla,* erriko guraso batzuenak *baizik, naiz-ta «reakzionario» batzuek beste gauzik esan.*

Aurtxoen eziketa gurasoak bakarrik *aukeratu lezatekenez, iñor etzen nor iñongo oztoporik jartzeko. Euren ustez bearrezko ba'zeritzaioten, gure egitekoa etzen aiei lagundu besterik. Sortu nai izan diranak sortu dira; eta ez geiago.*

Esan dezagun, ordea, nortasunez jabetutako guraso aieksortutako ikastolak gañezka egin dutela. Eta ez aurtxoz bakarrik, ardatz-ari jira-biran dabiltzen indarrez ere bai.

Baiñan goazen poliki-poliki... «Txandaka txerrimonik». Ala esaten zan nere urrutiko gazte denboran. Eta esakun zaarraren bideei jarraituaz, gurasoentzako «txerrimoni txanda» iritxi da.

Egizko azterketa egin nai ba'da, ikastola osatzen duten puska guziak ikutu bear dira. Eta, gurasoen puska au ez-da makala, arrano pola! Osoko puska ba'litz, gaitz erdi. Ainbeste motakoak osotzen dute, ordea...

Orregatik, lana arrazteko, era ontara egingo dut mota-zatiketa.

1.—*Nortasunez jabetutako gurasoak.*
2.—*Euskera soillekoak.*
3.—*Ezetzkor bidekoak.*
4.—*Modak eramanak.*
5.—*Erosokiz bakarrekoak.*

Leen aitatu ditudan gurasoei zor zaie aspalditik nabaitzen zuten ikastol mugira. Amaika naigabe ta larri pasa dituzte; baiñan, guzia zegon tokian utzi, ta edozein burges bezela, lasai bizitzeko tentaziorik ez dute izan. Arrazoiaren indarrez babestuak daudela jakiñaz, beti aurrera egin dute.

Mugira orren ondorioz beste guraso asko ta asko ernaitu, piztu, jaiki ditu. Kontzientzi bat sortu du. Ori izan da niretzat mugiraren ekintzik aipagarrienetako bat.

Bigarren salleko gurasoak, naiz-ta laugarrengoen antza izan, oso ezberdiñak dira. Sail aietakoak ba-dute berekiko bereizgarria.

Kaleratutako baserritar askok eta askok, giroa aitzaki artuta, aurrei ez zieten euskerik erakutsi. Eta gaur, aur aiek guraso biurtu diranean, aurrekoen iraiñetik itzul naiaz, euren aurrak, ikastoletara bialtzen dituzte. Berezko euskaltasuna dute; ez landua, ez erri-kezkatua.

Irugarren sallean, nolabaiteko politika usaia nabaitzen dut. Politika argirik, jakiñik, agian ez dute izango. Uko-politikan setatuak dirala esango nuke. «Agintariak euskerari ezetz, e?». «Orduan gure aurrak euskeraz ikasi bearko ditek-ba!».

Laugarren motakoak, ez ots ta ez putz.

Bostgarrenekoak, erosoen dauken ikastetxera bialiko dituzte aurtxoak. Baezpakoak dira. Arrazoi-burua, aurrak etxeko enbaazotik ateratzea da; andereñoak neskame merkeak izatea beste bat.

Orrelakua duzue edo nik ala ikesten dut, sail bakoitzeko irudia. Zati oiekin osa zazue gorputz bat eta, esan eizue ikastoletako andereño arrigarrien merezimendua txalogarri ez den!

Olakoetatik etorri zaie ikastolei aurtxoz gañezka egite ori. Eta uste dut, ikastoletako arduradunak, gurasoen eziketari buruz zerbait pentsatu bear dutela. Edo-ta, bestela, barnean sortuko zaie ajez joko dituen arra.

Ikastol asko; aur geiago... Gaur, Gipuzkoa'n, 8.500*'etik gora noski. Eta aur oiek bear den bezela ezitzeko,* 340 *andereño bear lirake. Eraketa, plan jakiñik egon ez delako, denbora gutxian bear ainbat andereño prestatzeko aalik izan ez delako esate nuan* ikastol geiegi sortu direla. *Eta orain, ura pasa-ta gero presak egiten...*

ZALOÑA

LUDIKO NASTE BORRASTEAK

Munduan alkar burrukak ez dirala bukatuko esango nuke nik. Guda madarikatua beti dago alde batean edo bestean. Azkenengo Europa'ko gudaketak bukatu zirala ba-dira ogeitaka urte. Guda une aietan, guk amerikatatik ikusten, esaten gendun: «Azkenengo guda izango dek au». Bai zera! Arrezkero gudak, nola Asia'n eta Afrika'n edo ta beste lekutan beti dira zerbait. Europa'ko guda artan, ikusirik ikusi zituztenak: erre, ausi ta kizkali bazter guziak, il milloika, ala ere eskarmenturik ez dagola dirudi.

Vietnan'go guda asi zala urteak dira. Amerikanoak alde aietan jaun ta jabe izan nairik beti. Ingelesak bezela egin bearrian izango dira amerikanoak: utzi bazter aiek eta beren etxetara joan. Vietnan'go mokaria latsa izan dute amerikanoak. Oraindik an daude, baiñon albisteak diotenez laisterka irtetzekotan dira. Asia aldeko biztanleak, an bere etxean, berak agindu nai dute, eta ez besteak, erbestekoak.

Amerikanoak, alemanekin guda egin zutenean beren esanetan beti itz eta pitz esaten zuten, alegia, demokraziagatik eta askatasunagatik gudatzen zutela. Ez esaten ordea interesak zaitu nairik gudatzen ziranik... Gaur egunean, demokratak zeintzuk dira? Alde guzitako demokratak daude, laterri bakoitzeko demokratak noski. Batzuk gorriagoak, besteak zuriagoak edo ta, antzekoak. Pentsa, komunistak ere demokratak dirala adierazten dute... Ez da beraz erraza asmatzen bakoitzaren idealismoaren berri!

Indarra da noski jaun ta jabe dana munduan. Esan geinke indartsu oietako bat amerikanoa dala, ta berdin Errusitarra. Bi indar aundi oiek nai dutena egiten dute, txepelago diran laterrieri nai dutena egiteko. Ta orain Txina tarteko.

Gudak irauntzen dute bi oiek duten unerarte. Gogoratzen naiz, nola Finlandia'k gudatu zun errusitarren aurka. Errusitarrak ain aundiak izanik, indarrez beteak, ala ere finlandesak eutsi. Baiñon, errusitarrak nai izan zutenean finlandesak makurtu. Aixa irabazi zuten ta finlandesak pakea eskatu.

Amerikanoak Vietnan'en zer egingo ez zuten, baldin nai izan ba'lute? Ausi ta kizkali bazter guziak eta guda irabaziko lukete. Zeintzuk dute erru orrenbeste urtetan an gudak irauntzea? Errusitarrak, txinoak eta amerikanoak, sartuak daudelako.

Gudak bukatzeko, konponketak egin bear dira, ta berdin ez geiago sortzeko. Ortarako daude jakintsuak. Politika ain zikiña danez beti, uste gutxienean gudaren bukaera ikusiko degu Vietnan'en. Amerikanoak laisterka dabiltz andik irtetzeko, geldika atereaz gudari pilloa. Amerikanoak andik irten bezin laister, komunismoa jaun da jabetuko dala lur aietan dakiguna da. Gertatzen dana ordea, komunismo ori ikusi egin bear zer nolatakoa dan. Orain berrogeitaka urteko antzekoa ez da izango beintzat. Ala ere, txinoa ala errusitarra?

Amerikanoak aspertu egin dira demokrazi izenaren zaitzaille izaten. Europatarrak jaramon gutxi egiten diote aitzeki orreri. Europa'k izan zun bere guda eta ikusi aren kalte ikaragarriak, beste batean sartzeko gogorik gabe. Arrazoiren paltik ez dute. Pakean guziak ongi izanik, zertarako gudatu?

Geroz, sortu zan Jerusalen'go guda. Arabeak eta israeldarrak burruka gogorrean daude. Pakerik ez dalakoan gaude, gorroto biziz daudelako bi alderdiak. Zeintzugatik daude gudan? Amerikano ta errusitarren gatik noski. Oien laguntzagatik irauten du gudak eta beste aitzakerik ez degu eman bear.

Laterri bakoitzak guda irabezte bakoitzean, zer egiten du? Ba, artutako lurrak beretzat gorde, lur oietako biztanleeri jaramonik egin gabe. Europa'n, begira zer egin zuten: Errusitarrak polako oien lurrak bereganatu zituzten. Auek ostera artu zituzten alemanenak. Dezeindu zituzten Baltiko'ko laterriak, erdibitu alemanak eta oraindik gauzak bear diran bezela jartzeko almenik ez dago. Beti eztabaidetan, bateko gizonak eta bestekoak alkartuaz. Batzar bakoitzeko irteran guzien esana: «Gauzak ongi dijoaz...» Gauz oiek ordea ez dute bukaerarik eta ortan dago ludia beti pakeari begira. Ta orren ordez Irlanda'n ondamendia!

Zertarako il zituzten ainbeste milloi Europa'n, gero Vietnan'en eta berdin Arabi ta israeldarren gudan? Eskarmenturik ez da izango. Azkenez ATOMIKA edo IDROJENOA botatzen ez ba'dute beintzat, emen ez dago pakerik itxuraz.

Milloiak dabiltz dantzan ILLARGIA berentzat artzeko, an ezer ez dagola ikusirik, ez ote da obe milloi oiek beste bearretan gaztatzea? Ainbeste gizaseme gosez ta jantzi gabe munduan eta ala ere alperrikako lanetan bota ta bota milloiak.

Aundi ta arroputz oiek beren eskutan daukate pakea. Oiek nai dutenean sortuko dute. Komeni ote zaiote... Ori berak nik baiñon obeto jakingo dute. PAKEA, AZE IZEN EDERRA!!

E. OZKIN

AGVR

II URTEA
25 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - AZILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

DIRUA - GOSEA

Gizaldi bakotxak bere ezaugarriak ditu. Edozein kondairazalek ori argi ikusi ta erakutsi legike.

Gure gizaldiak be ba ditu ezaugarri batzuk eta onein artean agiriena, diruaren banantzea dala ta, sortu diran goraberak eta agertu diran bide ezbardiñak izan ledikez. Baita gorabera ta ezdabaida onein ondoan aberri askotan agertzen dan gose gorria be.

Dirua laterri batzutan eta gizon batzungan pillatu da. Eta, jakiña, gosea beste laterri batzutan eta beste gizon batzungan zabaldu da. Ludiko ondasunak oge-ganeko estalkiaren antzekoak ei dira. Berez estalki guztia ludi guztia estaltzeko ona, baiña iñok beraganantza lar ekarten ba'dau, besteren bat agirian geratuko da.

Laterri aberatsak, oso-osoan, eralgitzailleak eta jatunak dira, baiña laterri ta gizon txiroak be onetara beartu gura dabez, eralgitera, jatera, «consumo» ra. Orretarako barri-bideen deiak, orretarako ministroen joan-etorri geienak: saldu gura, saldu egin bear...

Lan egin ta ondasunak atera, gero saldu ta eralgi. Bitartean dirua.

* * *

Gaurko gizonaren zorakeri au eratuteko, bide bi, batez be artu dira: Domu-zaleena (Kapitalistena) bata eta gizarte-zaleena (sozialistena) bestea.

Egia esan, domu-zaletasunak era asko ditu, baita gizarte-zaletasunak be. Auzi au ez da ain bakana.

Domu-zaleen bidea iñoren izerdiari onurea ateratea da: lana ordaindu al danik gitxien eta irabaztea norberarentzat.

Au ezin geinke onartu. Domu-zalekeria, ez gizon lez ez kristau lez, ezin onetsi. Ludiko ondasunak banantzeko era txarragorik ete dago?

Baiña, zori txarrez, gizarte domu-zalean bizi gara, domuaren menpean gagoz. Ba dakigu askatasunera jo bear doguna, buztarri ori gure burugoitik kendu bear doguna, baiña epea bear. Izango al da laburra epe ori. Geure eskuetan be ba dago ta...

* * *

Beste bide bat gizarte-zaleena da. Era askotako bideak oneik be. Baiña oiñarri bakarra: iñork iñor ez dagiala zapaldu, iñor iñoren izardiz ez daitela bizi.

Elburu au lortzeko, langilletza aundia zurtu bear da. Zelan? Batzun ustez, orretarako agintaritza gogor bat ezarrita. Ez ete ledike buztarri bat kendu eta beste bat astunagoa ezartea? Beste batzun ustez erri-agintaritzea, demokrazia bide dala. Baiña izango ete dau agintaritza onek diru adoretsuari burruka egiteko beste indar?

* * *

Gure artean, geinbat, arazo oneik gogor agertzen diran artean, anai doguzan gizonik geienak gosez bizi dira, aberririk geienak txirotasunik negargarrienean dagoz.

Arazo mingarri au bideratzeko, aberrien eta gizonen diru-zalekeria kendu bear. Orretarako iraultza sakon bat gizartean egin bear.



Odola, negarra ta... gosea

Ez gara odol-zaleak, iraultza ori gizonik il barik, gudarik barik, nai dogu. Ondasunak banandu gizartean eta gosea be guztien artean banandu. Iñork ez dauko bererik ezer, anaia gosez dagon artean. Gandhi'k berak be ori iñoan.

Gizarte-zaletasuna diru-arazoetarako eta erri-agintaritzea agintzeko, biak alkarturik mundu barria ta zuzena egiteko.

AGVR


K O R A P I L L O A

Jostaillu bezela erabilli izan oi dugu amaika aldiz, umetxoak giñalarik. Denbora igarotzeko nola edo ala, jolasgarria naastua izanik, atsegin zitzaigun askatzen genduen unean.

Nik ez nuen uste, urteak igaro ondoren, gizonak joku orretan jarraituko zutenik. Orrela deitu genezaioke bai, jostaillu bezela, ludiko naasketari: lantegi aldetik, erri kultura aldetik eta beste milla gertakizunekin. Ezin konpondu, ezin askatu degulako korapilloa.

Jostaillu bezela aitortu det, edo deitu diot goiko lerroetan gaur eguneko gertakizun garraizari. Jostaketan ibiltzeko, arrixku aundia du ordea; batez ere, ume biurtzen geranean, umetxoak bezela jokatzen degunean.

Ba-dirudi gaiñera, atsegingarri zaigula zenbait unetan. Zenbat traba ostopo, naasketa ulertu eziñak, eragozpenak ez ditugu jartzen gure bizikeran, egoera larri batera biurtu arteraiño? Irripar egitea, naikoa izaten da alkar ez konpontzeko, utskeri bat bide da, gerla bat sortzeko, itz bat naikoa gizona iltzeko.



Kosumoko gizartearen erakusketak.

Danak lokarri bateri loturik gaude, eta lokarri orreri korapilloa egiten alegintzen gera, bertan gelditurik, nola askatu ez dakigula. Okerrago oraindik, askatu bearrean, korapillo geiago ipintzen diogu. Zer egin? Ez geiago amorrorik, ez geiago ulertu eziñak, ez geiago gerlarik, ez geiago gizon iltzerik.

Bideak? Utzi umeen jostaketak, gizon bezela jokatuz. Nola? Korapillo geio egin gabe. Zailla, baiñan bearrezkoa askatasunean bizi nai ba'degu. Korapilloa askatzea ez da errexa izaten. Ez dezaiogun ba-da geio ipiñi lokarriari. Orrela obekio biziko gerala uste det. Ortarako, saiaketa bat egitea bezelakorik ez da izango noski.

RAMON ZAPIRAIN

BAGA, BIGA, IGA...!

Munduko guztia bezela, Euskalerria be krisisean dago, ikaragarrizko larri-unean; erri txikia gurea, baiña geroago ta bananduagoa! Demagoji utsez batasuna eskatzen dan aldi onetan, batasuna barik bitasuna sortu da, irutasuna... baga, biga, iga... berrogeiga!

Baiña ez natorkizue iritzien arloan dagozanen lengo ta oraingo «kapillarik» aipatzen, ez da ori nere asmoa, ta gitxiago aldizkari onen eginbide ta elburua. Gure izkuntzeari dagokionean bere, batasunaren izenean, bitasunik aundiena sortu jaku. Baiona'ko batzarretan, Altuna aitak iñoanez 12 euskaltzain tarteko zirala (150'erik gora dira euskaltzaiñak) asi ziran aspalditik batzuk eukezan asmoak «egi bakar» biurtzen, aurrez emondako oinkada batzuk bedeinkatuaz, ta gogorkeriz sartzeko gertatzen... guzurrezko lege-itxuraz apaindurik lortu zan Baiona'koen naia; Euskaltzaindian sartzea... Zer sartu zan baiña? Batasuna? Bai zera! Iñoizko bitasunik garratzena, edo obeto esateko, gaur ikusten dogunez, IRUTASUNA... eta ez «irutasun santurik»! Alde batetik, gu, atxekeri bakook; giputz aditzaren aldekoak bestetik, eta azkenez, Lapurdi'ko aditzagaz batera euskera mordoilloa darabiltenak.

Euskaltzaindiaren izena ara ta ona darabilte nai dana esateko, ta besteak ez jakintzat edo lerdotzat salatzeko. Eta oraindik ez dakigu euskaltzain bakoitzak zer uste daben, ez da enkuestarik egin-eta, ezta egingo bere; ez jake komeni. Euskaltzaindiaren itzalpean (bear ba'da baimen oso barik) egiten diran «ikastaro» ta «alfabetatze kanpainak» eta abar, ez daukee euskerea irakasteagaz zer ikusi aundirik... ondamendi bidean jartzea izan ezik, bear ba'da.

Baiña erri zeeak ez daki zer jazoten dan. Zerbait erderaz argitaratu ezkero, eureri komeni ez jaken zerbait, entzungo dozuz entzutekoak! «Zertarako erdelduneri etxe barruko zapi zikiñak erakutsi? ta abar... baiña eurak bitartean, erdera utsean zabalduko dautzuez guzurrezko erabakiak. Euskerarik ez dakiteneri, besterik barik, Euskalerri osoan alkar ulertzeko, euskerantoa dala onena siñesteraztea errezena da... baiña bardin ete euskerea dakitenentzat?

Baga, biga, iga; euskereagaz eta Euskaltzaindiagaz jazo dana. Gizarte osoagaz jazo dala esan legike; krisis itzelak jo du, zelan ez? Geienak, kristau giroan bizi ziran sendiak eta sendi alkarteak izan dira, gure demokratziaren oiñarri. Sendi orreik baiña, galbidean daukaguz. Bere garaian kristautasunez ingurutu ziran gizataldeak, gaur arrisku aundian dagoz.

Ni ez naiz iñor, guraso gizajo bat besterik, baiña nere iritzi apalean, Eleizea ta kristautasuna gaurkotu bear doguz; atzeratuta geratu diran estrukturak edo siñeste oiñarriak barriztatu edo beste era batera erakutsi; gizatasunari bere garrantzi osoa emon eta abar... baiña ba ete dago olako asmorik gaur, izenez kristau diran talde batzuetan? Euskalerriarentzat euskal-eleiza bat eskatzen zanean bat nentorren, baiña orain, emen zear kanpotar igarleak dabiltzaz; ba ete dakarre euskaltasun kutsuzko apurrik euren asmo ta azterpenetan? Artzen ete dabe aintzakotzat gure erriaren nortasun berezia edo, beti bezela, aurretik bota nai ete gaitue? Nik dakitenez «unibersalista» onen elburuak ez dira euskal kutsuzkoak eta gitxiago kristau zintzoak.

Eleiza latiñak dituan mito batzuk aldatu bearra dogunik ez du iñork ukatzen, baiña aldaketa orreik ez ete dakarre beste «unibersalismo» mito bateri ateak zabaltzerik?

Erriaren izenean, alkar-izketea eskatzen da. Betor zorionean alkar-izketa eraginkor ori... baiña ez apurtzaillea. Apurketa onen ondoren, ba-dakigu zer datorren, «progresismoa» ta orregaz batera gure sendiaren ondamendia. Guk baiña, Euskalerrian sendia salbatu bear dogu.

Marxismora eldu diran laterrietan ba ete dago alkar-izketarik? Guk, kristauok esku zabalekoak izan bear ei-dogu... baiña emen. Txina'n edo Errusia'n izango ete genduke eskubide bardiñik, kristaurik epelenok bere? Ba ete dakez judutarrak eurak bere?

«Eleiza pobrea», «eleiza pobrea danontzat obea»... baiña gitxienez eleizea ta kristaua!

Orain ba-dakigu, barriro be «reaccionario» deituko dauskuela norbaitzuk... Zergaitik? «erreazionatzen» dakigulako ala?

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

IKASTOLAK DIRALA-TA GUZURRA GALANTA...

Nire ume-aroan, oin larogeiren bat urte, ez egoan ikastolarik, escolak *geukazan,* escola'*ra joaten giñan. Gaur, Jaungoikoari eskarrak, ez daukagu* escolarik *gure euskera goxoan, ikastolak aren tokia artu dabe eta* escolak *lurperra bidean jarri dabez. Oiturearen indarra! Zuzen eta argi dan oiturearen indarra! Asko be asko irakasten dauskun oiturea!*

Baiña ba-dogu kalte-urrentxoa geure artean. Itz polit orreri ikurpen edo erazaguntza (ezagutu erazo) estuegia emoten dautsagu: Ume txikien ikastokia, sei edo zazpi urtetik berako umeen ikastokia edo ta euskera bakarrik ikasten dan tokia. Zuzenago izango litzakegu itz orregaz edozer eta edozeiñek ikasten daun tokia erakustea. Goi-ikastola naiz Ikastola Nagusia goyeneko maillan dagona, Erdiko Ikastola naiz Bitarteko Ikastola eta Be-Ikastola edo Ume-Ikastola lenengo maillakoa. Ondiño bat edo batek escola *naiz* eskola *erabilli gura ba'dau ez gaitezen asarratu berakin, bere eskubidea dauka. Ez gara asarratzen iñorekin bere begiak eta gureak margo bardiñekoak ez diralako, ez gaitezen asarratu gure adimenak be bardin bardiñak ez diralako. Leibnitz jakintsuak uste eban gauza bi ta iru be bardin bardiñak izan leikezala, beste jakintsuak uste dabe ori eziñeko gauza dala. Gauza bi ba'dira nundik edo andik bereiztu bear dira, zetan edo atan ez-bardiñak izan bear, edo margoan edo neurrian edo aztan edo aldian edo zeozeretan ez dira bardin, ostantzean bat izango litzake eta ez bi. Orrela adimenetan be, batak onela ikusten dau, besteak alan. Ez gadizan aserratu. Ez dago iñor iraindu bearrik.* Zeinbat buru ainbat aburu.

Ibilli ibilli gadizan naiz gaitezen; ibilliaz eta erabilliaz onetara ta aretara oituko gara IKASTOLA'ra oitu garan lez. England'era bidaldu ninduenean ume koskorren ikastolara joan nintzan engelandera ikasteko. Few *idazten eben ta* Fiu *oguzi,* Sew *idatzi ta* Sou *oguzi,* Flew *idatzi ta* Flu *oguzi. Zer dok au? esaten neban nik. Gero* Beard *idazten eben ta* Biard *oguzi; baiña* heard *idazten eben ta* Herd *oguzi;* Horse *orrelaxe oguzten eben* jorse *baiña* Worse Werse *zan. Nik ezin ulertu ta irakasleari zergaitik zan orrela itandu neutsanean, ez ekiala zergaitik esan eustan baiña orrelaxe zala. Ta kitu. Baiña Oxford aldiak utzita ta Yorkshire-aldetara joan nintzanean, ango baserritarrai ezin ulertu...*

Grecia'n ez eutson iñok Homero'ri agindu jonikeraz naiz olikeraz, naiz beozieraz idazteko, berak bere bidez idatzi eban eta Homero-era jarri. Ori, bai, jakiña! GERKERA zan. Indarrez ez, aginduz ez; ibilliz, erabilliz, ekiñez. Ba-gabiltz. Aurrera.

URRUTIA'TAR GOTZON
M. B. S.

Gaur egunean iñoiz baiño geiago jakin-gosea nabaritzen dogu euskal-arloan. Orretara egunero ta alegin guziez saiatzen diranak ezezik, beste asko ta asko, gazte jendea batez ere, amorruz datorkigu sarritan oraiñarteko euskal gauzen berri jakin-galez. Eta orra or ereti egokia lendik zerbait dakienak, ikasle berriok eskolatu dagiezan. Ereti ezin obea, benetako edozein euskaltzalek oratu bear leukena.

Alde batetik pozez gagoz zenbait euskalzaleen alegin ta indarkada sutsu-maitatia ikusiz. Alabaiña, tamalez beterik ikusi ta irakurri izan ditugu beste batzuen maltzurkeria ta jokabide okerra. Orretariko bat aipatu dagidan.

Bilbo'ko pasiotarrak ateratzen daben «Redención» aldizkarian, onako au irakurri bear izan dogu. Naiz ta egilleak guri iruntsi arazi gura, guk onartu ez, onartu ezin, bere jardun bidearen okerra ta mukerra.

Ara Joarraileko zenbakian idazle batek dakazan itzak, bat ere aldatu gabe: «Erdera kultur gaietarako izkuntza ofizialtzat de facto arturik... Geroago Astarloa bizkaitarrak beste orrenbeste eginen zukeen, eta geroxeago beste euskaltzale guztiek ere: Kanpionek, Navarro Villosladak, Azkuek, Arana-Goiri... gauza arrigarria da benetan ikustea nola jaun agurgarri guztiok bat ere euskaltzale ez zirenen bide beretik zioazen, Unamunori ta Barojari jokoa egiñaz».

«Euskal kultura euskeraz idazteko bearra, baiña ain teoria gartsu, suar eta biziak predikatzen zituztenak (Azkuek, Aranak, Kanpionek, Orixek, Altubek, Arantzadik...) geiago idatzi bearko zuketen euskeraz kultur gaiez, eta ez bakarrik olerkiak edo garrantzi gutiko lantxorik». Bigarren au, epaillako zenbakian.

Lenengo, parregarri yat euskal kulturaren alorrean Villoslada, Azkue ta besteekin bat egin nai ori. Bigarren, negargarri: nundik atera dozu Azkue'k-eta jokua egioela Unamuno ta Baroja'ri? Sabin'ek, bizi zan aldirako, polito ikasi ta erakutsi eban bere euskerea. Beste orrenbeste Kanpion'ek. Ta Azkue'ri gagozkiozala auxe esango dautsut: egia da gauza asko ta asko erderaz edo prantzeraz idatzi ebala. Alan bear, ziñez, euskaldun anaiak ulertu ta jarraitu bear ba'eutsoen. Orrez gain, zenbat eta zenbat idatzi euskun Azkue'k euskera utsean? Zeuk neuk beste ta neuk baizen ondo dakizu, emen eztabaidan asteko. Gaiñera, erdal idazkietan ez dot uste Azkue'k iñungo euskal etsairi jokurik egin eutsonik. Ostiko galantak emon bai, ta azkeneraiño zirikatu euskal lurrera erakarteko.

Zure bigarren esaldia artuta auxe esan bearrean naukazu, egia estali ta naasi geratu ez daiten. «Olerkiak edo garrantzi gutiko lantxoak». Azkue'k olerkitan gitxien idatzi eban amagandiko izkuntzan. Eta osterantzeko lanetan ederki saiatu ta nekatu zan gizona. Or bere Euskal Izkindea, ordurarte iñork urratu ez eban bidea. Naiz ta gero berberak parre edo iseka egin bere asikiñari, or geratzen da bere alegiñaren lekuko. Beste itzaldi ta idazki, gramatikazkoak, izkuntzazkoa, oiturezkoak eta bestelakoak, garrantzi eskasekotzat al dauzkazuz zuk? Gaiñera, arein garaian ez zan gaurko premiñarik. Oartu ondo, oraingo gazteen lanekin alderatzeko gogoa ba'etortzun, bada ez bada. Orixe'k geiago idatzi zun neurtitzez. Eta ez al dira kulturadun neurtitzak Orixe'renak? Jakiña, kultura ez da bertso utsez osotzen. Baiña, gizon bakoitzak dagokion gauzetan eta neurrian aritu bear dau, ezer onik egingo ba'dau. Orixe'ren bertsoak edo aapaldiak uste dozu alperrekoak dirala kultura-arazoan? Gernika'n, Egan'en, Euzko Gogoa'n eta abarretan agertutako lan sakonak zer dira, kultura-saio sakon-sakonak baizik?

Neurtitzez gaiñera egin eban zerbaitxo gure maixu andiak. Oraindik argitara gabekoak gogoan artzeke. Emon ta egin eban baiño geiago egin leikean gizon batek bere bizitzan?

Gorago aipatu dituzunak batera artu dituzu ta oker ta anker zeralakoan nagotzu. «Teoria gartsu, suar eta biziak» predikatu ez ezik, euren alde bizitza guztia emon ere egin eben, ain egoki ez zitzaien garaian, batez ere. Orixe'k eta Azkue'k baitik bat, predikatu ez ezik, praktikatu ere egin eben ederki ta maixuki.

Alaz ere, ikasle batzuk gogorrak eta gorrak, antza.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

IKASI DAIGUN EUSKEREA

Gaurko lantxu onetan, nire ustez aditza txarto dakarren esaldiak aitatuko dodaz. Txirristik egiten ba'dot norbaitek eskua luzatu daidala.

Bestetakoak lez oneik be geienak euskal aldizkarietatik jasoak dira.

Iñoiz, bear ba'da, esaldi baten uts bat baiño geiago egon leiteke, baiña nik idazlan bakoitzean erá bateko utseri bakarrik jaramon egiten dautset. Esate baterako, aditzagaz ba'nabil, beste utseri jaramon gitxi egiten dautset. Jakiña, beste moduko utsa andia danean ezin laga izaten da.

Bi errenkadan jarriko dodaz esaldiak; baten idatzi izan daben modura joango dira ta bestean idatzi bear litzaken eran.

IDATZI DABE

On Iñaziok, aiton maitekor baten antzera, neskatxari kontsolatzen ZION, euskera jator bidez.

...Usteak erdiak baiño geiago ustelak irten ZAIZULA.

Azkenengo egun auetan, amets txar batek inguratzen DIT nere burupekoari lagun egitera joaten naizenean.

Egia da gaztedia ausartzen (ausarta?) dala ta itxura gabeko gauzak egiten dituala. Baita ere egia da ez ZAIOLA aintzakotzat artzen.

Eta bera (Jose Maria Altuna izan ez BAZAN ez degu uste UNAI bikotea aurrera aterako zanik.

Jesus'i parrez ETZITZAION ikusi.

Muxuka jan nai izaten NIZUN.

Donostia'n BIZIKO banintz Basabil bezela, maiz joango nintzake, seguru asko, naiz Baionara, naiz zernai lekutara argibide geiagoren billa.

Gazte bat MINTZO = (Habla un joven (?); idazlan baten burua). Monod MINTZO (au be idazburua).

Egunero liburu bat eskuartean euki behar zenduke ta bertatik zeozer irakurri. Ta ahal dala, liburu hori euskeraz idatzia izan DAGIALA.

Niri be beste ainbeste ez DAGIDALA jazo.

IDATZI BEAR DA

On Iñaziok, aiton maitekor baten antzera, neskatxa kontsolatzen ZUAN, euskera jator bidez.

...Usteak erdiak baiño geiago ustelak irten ZAIZKIZULA.

Azkenengo egun auetan, amets txar batek inguratzen NAU nere burupekoari lagun egitera joaten naizenean.

Egia da gaztedia ausartzen dela ta itxura gabeko gauzak egiten dituala. Baita ere egia da ez DALA anitzakotzat artzen.

Eta bera (Jose Maria Altuna izan ez BALITZ ez degu uste UNAI bikotea aurrera aterako zanik.

Jesus parrez EZ ZAN ikusi.

Muxuka jan nai izaten ZINDUDAN

Donostia'n BIZI banintz Basabil bezela, maiz joango nintzake, seguru asko, naiz Baionara, naiz zernalekutara.

Gazte bat MINTZATZEN DA. Edo, Gazte batek ITZ EGITEN DU. Monod MINTZATZEN DA. Edo, Monok'ek ITZ EGIN DU.

Egunero liburu bat eskuartean euki behar zenduke ta bertatik zeozer irakurri. Ta ahal dala, liburu hori euskeraz idatzia izan DAITEALA.

Niri be beste ainbeste ez DAKIDALA jazo.

Azkenego esaldi au neurea. Irakurri ordurako konturatu nintzan uts orregaz. Ez dakit berorrek nundik urten daben. Nire errua bada erdi lo nagoala egindakoa izango da; ez nik utsik egiten ez dodalako, izki bat dala ta ez dala itz bi orrein artean zer alde dagoan ondo ezagutzen dodalako baiño.

«Buruko ule guztia jausi JAT» esan bearrean: «Buruko ule guztia jausi DOT» esatea lez da goiko nire okerra.

KAMIÑAZPI

POZAK ETA KEZKAK

Euskaltzaindiko diran eta ez diran batzuk «euskerantoa» irakasten jo ta ke diarduen bitartean, gure izkuntzea, euskerea, atzerantza doa igarri-igarrian. Iñoiz erderarik egin ez dan erri txikienetan bere umeeri erderea entzun geuntzan euren jolasetan... Guk ezin siñestu errietan galdu ezkero uri aundietako «euskeranto-mordoilloak» berbiztuko dauanik... naita egunero «liburu» barri bat argitaratu. Iñork iz ditu ez irakurri ez ulertzen-eta. Egilleak eta bere inguru bik edo iruk izan ezik.

* * *

Baiña ez «liburuak» bakarrik. Aldizkari baten «korrektore» egiten daunak esandakoa da au: «iru edo lau bider irakurten ditut bialtzen dauskuezan lan batzuk, eta ezin izaten ditut ulertu». Gero baiña, orraztu, biribildu ta ale! irarkolara. Ez da ez euskera «batuan» idazten dakian idazle askorik, korrektore biren artean h mordo bat sartuaz o otzen dabe argitaratzen dan «koktail» orretatik geiena.

* * *

Donostia'n jazoa: Sendi bateko iru umetxo ez dakigun ikastola batera doaz. Denpora garrenean «guk euskera batua ikasten degu» esanaz or doaz amonanera, baiña amonak ezin ulertu! Gogor artu ditu aur gizajook eta orain erderaz egiten ei-dabe... Ba ete-dakite Euskaltzaindiaren buru egin diranak nora daroaten gure izkuntza makillatua? Geroko «ni pekatari» otoitza alperrikoa, orrelako oiturarik gordetzen ba'dabe beintzat.

* * *

Orain bertan Bilbo'ko irrati batetik entzuna, Bartzelona'n Atletik'ak irabazi dabela esan ondore, beste au: «Ta orain gure erkian (región) jokatu dan beste *lenengo maillako ostikoketea, Burgos-Atlético de Madrid'en barri emengo dogu. Or ba, erki barri batera garoiez, ta Donostia'n jokatu dana or beste nunbaiten izango zan...*

* * *

Andereiñoak bear dirala, gitxi ei-dagoz ainbeste ikastoletako aur ugarieri euskerearen lenengo urratsetan laguntzeko. Ara baiña, batzuk, atzetik bultzatuta, ez jakiñak eta ez ikasiak izan arren, ta euskerea bera be ez ezagun ba'dabe be, or sartzen dira gibelik aundienagaz. Beste batzuk, neskatil zintzo, etxekoi ta euskaldun jatorrak, bildurrez; ez ei-dakite aur-eziketan ezer eta ez dira ausartzen. Ta oneik izango litzakez gure aurtxoen irakasleik onenak; ba-dakite euskerea, ta bestea, eziketarako zerzeladak arin ikasten dira, eragiñak berak geien.

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

IDAZKEREA

Aspalditik irakurten izan dot euskel-idazlarien artean batzuk mordoillo euskerea darabillela idazlanetan, eta bear ba'da gu be izan giñake tartean, ez giñan ba guztiok jakitun izateko jaio.

Nire ustez, ulertu eziñaren gaitza ez da besterik erdereagaz euskereak daben aurkako joskerea baiño; euskereak berea du, erdereak beste bat. Erderea euskeratutean au aintzat artu ezik, esakuntzea ikurpen gabe jartzen da, ortik ulertu eziña euskaldunantzat.

Bestetik, erriak darabillazan itzak garbiak izan ezik, erriak dituan gaitz edo txar-esanak zuzentzeko bete bearra jakitunak dute, ta ez eusko era garbain esan leitekezanak, erriak bere oituran oker daramazala-ta ontzat artzea, ta gitxiago onestea. Bear izan ezkero alboan ( ) artean ipiñi erri-oiturakoak. Ori izango litzake euskereari benetan laguntzea. Laterri guztietan bada-ezpadako itz nastuak alboratuak izan dira, batez bere idazlanetan.

Noiz itziko dogu besteak egiten daben lanari utsak billatzen ibiltea? Ez ete dogu beste lan edo zeregiñik, iñorena zapaltzea baiño? Orain ni bere erderakadak kentzera nago, al dan guztian, ba, bat da mintzatzea ta beste bat idaztea. Au irarrita geratzen da, bestea aizeak daraman lez. Orregaitik ba idazkeran euskera garbia erabiltearen alde nago. Adi ba'dagoz, gogo-beroz ba'diardue ta euskera zale zintzoak izan, alegindu-ko dira iztegitxo baten bitartez idazki illunak ulerkor ipinten... ez dot uste iñork erreza billau dabenik, batez bere lenengoetan, englandarrera ez prantzera bere, ta au guri gure errian jazoten jaku tamalez.

Orain esan egidazue, gazteleraz idazten diran idazkiak euren ikur-indar guztian ulertzen dutenak zenbat diran? Zenbat, Ikastola Nagusietan ibillitakoak izan arren, adi-gaitz lez itxiko leukeezenak? Nun da iztegi guztia buruz dakianik?...

Oba da albo batera itxi eztabaida guztiak eta zuzen jarraitu elburu bat dogunok. Eta ardura gaiztoz beteak ba'lira, jaramonik egin ezagaz ordaindu, ba, euskel-zale agertu nairik, agirian dute etoi zital batzuk baiño ez dirala; etsai-alogerako sator langilleak; gure ta euskerearen arerio iguingarriak.

EGILLETA

GAZTE

ZELAN EGINGO DOGU EUSKERAZ?

Bai, guk nabarniztarrok, gitxitan idazten dogu. Egia esan, ez dakigu larregirik, ez idazten ez irakurten, naita batzuk, alan edo olan, idatzi ta irakurri... baiña eztakit zenbatek.

ANAITASUNA aldizkaria, Irugarren Ordenakoen bidez, lenago sartu zan, eta oso pozik irakurten genduan... ez uste izan orain pozik irakurtzen ez dogunik. Orain jesoten yakuna, beste gauza bat da: eztogula aitzen sarritan. Azkenean iztegi on bat be ba-dau, baiña zelako berbo edo aditzak, zelako jokerak, zelako guk iñoiz erabilli ez doguzan euskera-erdera motroilloak darabillez?

Guzti ori, euskera «Batua» dala diñoskue. Uste dot oso ondo dagola euskera batua. Bai, benetan be bearrezkoa da, idazteko beintzat. Erdaldunak erderaz aituten dira? Idazkera bardiña dabe, baiña berba edo itz egiten, aitu eziñik, baten baiño geiagotan ikusi dodaz: bata andaluza dalako, edo eztalako, ta bestea extremaduratarra dalako. Jakiña.

Lenengo geure euskalkia idazten, irakurten eta elerti ta abar ba'genkiz; baiña zelan asi orain beste barik, iñoiz entzun eztogun eran idazten? Lenengo-lenengotatik, geuri euskera zaleoi, gatx egiten yaku, ta euskeraren ardura larregirik ez dabenai... ikusi.

Ta batua onetara edo orretara dala esaten dozuen arten ba-dakizue zer jazoten dan emen (eta alboko errietan bardin?) ETORRI ona, etorri ta ikusi: zenbat umek egiten dabe euskeraz? naita etxekoak euskeraz egin, umeak erderaz, eskolan, kalean... eta BASERRIAN, sukalde, eskaratz bertan. Ez erdera politagoa dalako, ezta obeagoa dalako edo ogibide izatekoan, pentsatu barik baizik.

Zer jazoten yako gure euskera kutunari? Politikan lez, amar edo ogei kaletar, buru izan nai dabenentzat da bakarrik euskera? Errian zer jazoten dan ikusi barik arek, euren gogora ipiñi bear dabez normak?

Eztakit zer esan, Eskutiz au AGUR aldizkarira bialtzen dot, gure euskera darabillelako, ta argitaratu nai ba'dabe argitaratzeko. Gauza batzuetan ez nago onegaz be, ba gerra aurretiko garbitasun larregitxo be ikusten dot-eta, baiña naiko errikoia da: erriko intelektualak ez garanantzot, beintzat.

Nik uste dot, gure egunoroko euskera, berbeta au, euskalki onetan, leku bakoitxean bere euskalkian ikasi ezkero, denpora gitxian euskera batua artuko gendukela. Baiña osterantzean zer?

Beste gauza bat: Eztakit zein lekutan H zoragarri ori erabilten dan. Bear ba'da gazte bat edo bestek esan daustenez, Prantzi aldean erabilten dabe. Zenbat lekutan? Benetan jakin gura neuke %'ko zenbatek erabilten dauen Euskalerri guztian? Ta gaiñeraz, zertarako gaiztu H orrekaz idazkerea (ze beste ezer ezta gaizten) ainbat itzetan sarturik?

Guk nai gendukena erreztasuna da. Zenbat eta erreztasun geiago, euskera ariñago zabalduko da, ta alfabetatzea (olan esaten da, ezta?) egingo da.

Nire erriko gazteakaitik garraxika natortzue. Ume onek bear ba'da eztira konturatu be egingo, baiña gu konturatzen gara, ta ba-dakigu zuen, euskal arloan zabiltzen guztion laguntza bear dogula. Ondo dago, euskera bitarteko, bizia ateratzea, ondo dago ta bearrezko dogu «Batua», baiña egin ondo gauzak, eta asi lenengo bear diran bideetatik. Azkuen «Euskalerriaren Yakintza» be oso ondo aitzen dot. Zergaitik bota eben, edo ez eben ontzat artu? Nik ez dakit, baiña jakin gurako neuke. A be «Batua» ei zan.

Ezelan be ez itxi euskera galtzen. Iñok be ez dogu itxi bear. Euskera galtzen ba'da ez dot nai euskaldun izan. Origaitik, gure biotzagaitik, gure izakereagaitik, Gugaitik, danai garraxiz noa: EUSKERAZ EGIN, baiña euskeraz. Au da gure zarren, nok daki zenbat urtetan, zenbat gizalditan, izkuntza, ta Nabarniz lako euskaldun erri baten gazteak, ez danak zori-onez, baiña bai asko erderaz ari dira, erderaz erantzuten dautzue.

Lagun eiguzue.

NABARNIZ'KO GAZTE BAT

ABADEAK GORA TA BERA. I

Jakintzaren adar-otsak Bilbo'ra nakar.

Baserriko eginbear guztiak an itzi dodaz Anboto'ko aizearen eskuetan.

Orain, ardura mingotx bat azaldu guran nago gela illun onetan. Ego-aize zoroa mendietan bakarrik ebillelakotan da engoan; baña bai amaikatxoren buruetan be burruka bizia.

Abadeak dirala ta eztirala, ainbat zentzunbako edo zentzunezko berba entzuten da baztarretan. Batzuetan ondobearrean, sarri askotan mormoxeta ezbearrekoetan. Dana dala, kea ikustean, sua iruditzea ondo be ondo deritxat, eta esangura orreik zerbaiten ezaugarri izango dira.

Edozeiñek ikusi al leikena, orritxo baten idaztea ezta ain gatxa; baña ez dot gura uskerietan gelditzerik, ezta susterreko gaitza ikusteko itsututa lotzerik be.

Goazen kalera:

Abade onek, diru-sorroa gona-luzepean,
liburu bat besapean.
Orrek, miña arin, itz utsak, autoa
burrundadan.
Beste arek, samintasun itxura arpegian,
begiak zoli inguruetan.
Zeiñek ete daroa Barri Onaren zuzenbidea
alkar-maitasunean?

Barriketak ugaritzea oso erreza da. Jokabide orreik sakon-sakonetik aztertzea neketsua, baña egin bear dana.

Asikeran neukan gai au sakonetik aztertzeko asmoa, baña nire biotzeko jokereak edo buruko etorriak, beste bide batzuk agertu daustaz bitartean. Beste ekiñaldi baten eldu bearko!

EGUZKI

EPELEAN LO

Sarri ta asko, gure erribarruan jazoten diranak jakin barik, bizi gara. Gure inguru txikian lotuten gara, elburu txikerren baita gogaitgarrien artean gure adizkideekin bat. Ala ta be, era askotako ta garbi ikusi daikeguzan auziak diran errian bizi gara.

Ostikoketa ekiñaldi bat ikusi ta lasai-aldi bat izatera joanda Sestao'n izan nintzan. Joko-aldi orren ondoren, kalerik-kale ebillazan lagun-arteetan esanten ziranak arritu ninduen: Landoletako oporrak, lanetik jaurtiak, giltzapetuen nekeak eta abar ziran erabilliezenak. Ortik igarri al izan neban amesetan edo erdi lotan bizi nintzala. Ni, Atletik'en edo albo errietako ostikoketetan murgiltzen nintzan bitartean edo gure aldizkariak ondo edo gaizki agertzen diran adizkideekin aztertzen dogunean, beste orreik, nere erriko geintzuok, arazo garratz eta nagusiagoekin jokatu bear izaten dabe.

Landola aundienean ziran aldi-neurturako langilleak, kalean dira ta ez dabe nun euren etxekoentzat ogia irabazteko lan egiterik, beste landola batzuetan be orrenbestean; itxasontzigintzakoak alogera aundiagoa eskatzen geldirik egon dira, baita beste batzuk lan-azterketa gogorrak dirala-ta. Ori danori jakin neban.

Ori ta etekin eta janariak gora-gora doazanetik txirotasuna be aunditzen, eta ola-gizonak euren irabazieri begira ez dautsela jaramonik egiten, ta asarrea indartzen doala.

Bilbo'runtz nentorrela, Burzeña'n egin bear izaten dan geldi-aldi aspergarrian, guzti ori aztertzeko astia izan neban, eta burutapenez bete nintzan, eta nere auzitxoak eta orreun itzelak alkar-begiztatzen nituan, baita nere adizkideenak be, giro lasai eta ziurrean bizi garanonak.

Ta itxura oneitxek gurean nabaitu nituan: Bere burua nundik goraldu billa dabillen olerkari orrena; biribilla zergaitik biribilla dan asmatu ezinda dabillen jakin-zale pilosopoarena; bere burua barrizaletzat joten daben abadearena, aotik at baiña; baita bere egin bearrak bete eta lasai bizi diranen izkuntzea dara-dabillan eta orrenbeste egiten ez daben beste abade orrena; Atletik zale edo «ez gaude konporme» orrein zale diran jaungoiko-txikientzako bakarrik bizi diranena; edozein ordutan (es dabe lanik egiten-eta) tabernan arkitu daikezuzan eta langillediaren eta onein auzien aurka itz-jarioka dabillazenena...

A zelako aldea! Batzuk ezinbesteko ta bene-benetako arazoz josita, bestak auzi koskorreri lotuta, ea gizartean eta gaurko giroan gora egiten daben zain. Batzuk nekepean, besteak orrein nekeak aztertzen eta beste orreik ezta orixe be, ez dabe ezer jakiten-eta, euren inguru zoriontzuan ezkutatuta bizi dira.

Gure abi epel eta bakartietatik urten bear genduke, adizkide eginda beste orreri laguntzeko, besoen ekiñaren ekiñez euren sendikoeri laguntzeko lantokirik aurkitzen ez daben beste orreri.

AZKARRETAZABAL'TAR JON

NUNDIK NORAKOA XV

Gure bostgarren ikastaroan gengozan. Vizcarra gure gogozuzendaria. Bein batean gure eleizatxo txikian gogalpen batean auxe esan eban: eusko apaizak emoten ari diran gaitzpidea, beren menpetasunezagaitik... Egiz orria ateratzen jarraitzen ebelako. Gu orduan guztiz zurtu barik eta ez geutson ezer erantzun. Anartean jantokian irakurri euskuen eguerdi batean eleizbarrutiko boletiña ta antxe jakin genduan arako orri ospetsu a galazota egoala.

Jatorduetan idazti bat edo beste irakurri oi zan geienetan gure erakusgarritzat. Sasoi batean gudateko abiadore gazte ta entzutetsu baten egunkaria azaltzen euskuen. Bilbo'gaitik eta bizkaitarrakaitik sekulakoak esaten zituan. Bateonbat joan yakon nagusiari ta zerbait adierazo. Ez zan geiago idazti a irakurri. Nik gogoratzen ditudan batzuk: Juan de Austria'ren bizitza, Galdos'en «Episodios Nacionales» eta abar. Egia, eliz edo erlejiño usaiñekoak ere azaltzen euskuzala. Philosophi eskoletan Urbano Gil Ortega irakasleak bein eta birritan artzen eban erakusgai Euskalerria: edo bere gizonak edo bere izkuntza ta abar. Ta beti be alderdi txarra edo berak alan ustekoa agertzen euskun.


Nigaz batera beste asko asi ziran euskera ikasten. Orain gogoan ditudanak: Aretxaga Juan Jose, abadetu barik il zana ta M. Hormaeche, geuretu barik ilgo dana, antza.

Eleizan ez zan euskerarik egiten. Bakarbakarrik kurso azken egunean, meza-ostean, Agur Jesus'en Ama abestu oi genduan guztiok. Ta beti agertzen zan bat edo beste muzin eta espaz artega jarri oi zana.

Gure ikaskide Andoni Etxeberria'k latin-eskolan lanak-eta bere euskerazko izenarekin izenpetuta emoten eutsozan irakasleari. Ta arek, J. L. Urrutia giputzak, beti arkatz gorriz ezabau ta erderazkoa ipinten eutson ordez.

Baiña, ezabatu, kendu ta ordez ipiñi, beste zer edo zer andiago egiten euskuen-eta, urrengoan ikusiko ori astiro eta patxadaz.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL



KONTU KONTARI

ALKAR IZKETAN XIII

EUSKEREAREN INGURUAN

—Gure izkuntza maitearen inguruan, Manu, gauza pozgarriak gertatzen dozak. Bat ezpai barik, eun eta larogetakaz Ipar-amerika'n yayotako euskeldunen semeak, ingalanderaz eta euskeraz emen, euren asaben lurrean, itz egiten ikustea. Eta beste bat aurtengo ikastaroan, Euskelzaleen ardurapean 19.000 umek Euskerea ikasten ekingo yautseela.

—Orren barri AGUR'en irakurri ñoan ta benetan poztu nintzoan. Baiña era berean beiñola aitatu giñoan «indiano» agaz gomutau nintzoan.

—A, bai, euskerea aztu ta erderea ikasi barik etorri oan a?

—Bai, Txomin Agirre'k bere «Kresala»'n aitatzen yoana. Ak arrokeriz esaten yoan: «Yo puedo disir **mejor que nadie, porque** ha **visto** muchos **tierras, baskuntze no vale para ganar pan». Ederto erantzun yautsoan itxasgizonak: «Zelan irabazi dozu ba zuk geldo zar orrek? Erderaz yardun ederren bat eginda? Ezagun dozu».**

—Lelo izatea ez dok pekatu baiña arro izatea bai, eta ori esan ebana biak batera zoan. Baiña ba-dozak euskerea gitxiagotzat daukenak, astegunetako soiñekotzat legez, ta besterik ondo yakin ez arren, alde batera itxiten yabenak.

—Ori emengo gatxa bakarrik ez dok. Ara, oin ainbeste aitatzen doan Irlanda'n bein gertatu zoana. Irlandarren izkuntzea, gaelerea, galduez yoyan eta ingalanderea ugarituez, eta Hale eritxon gotzain batek erri-izkuntzearen aldezko Alkartasun bat sortu yoan. Eta yakiña, gotzain onek erritar guztiei euren izkuntzan itz egiten yautsoen.

—Gauza arrigarria benetan... gure artean ori yazo izan ba'zoan... Baiña, yarraituik...

—Gotzain arek egun baten baserritar bat aurkitu yoan gaeleraz ondo baiña ingalanderaz mordoillo egiten yoana. Gotzaiñak gaeleraz itz-egin yautsoan eta baserritarrak ingalanderaz erantzun. Orduan Gotzaiñak esan yautsoan: «Zegaitik ingalandera mordoilloz erantzuten daustazu, gaelerea ondo yakinda?» Eta baserritarrak erantzun: «Yauna, alantxe da baiña, berori lango yaun bateri...»

—Olango gauzak ikusteko ez yaukagu Irlanda'ra yoan bearrik. Au dok samingarriena.

—Baiña ba-dozak, erri-izkuntza yakin arren be, arrokeriz edo euren yayotzako-izkuntzea itxita beste izkuntzara yoten yabenak, batez be neskatillen artean. Ta ez emen bakarrik.


—Zuzen ago. Aste asko ez dala, Lapurdi'ko euskeldun erri baten bizi doan abade lagun batek auxe edestu yaustan. Euskeldun neskatilla bi parra-parra pran tzesez iñarduela Apirka'ko gudari erdi baltz bat urreratu ta esan yautseen: «Zuok zeuen izkuntzea euki ta, zer dalata diarduzue prantzesez? Neskatillak ixillik gelditu yoazan. Baiña aprikatar gudariak barriro be itandu eta euskaldun neskatillak ixillik...

—Zer erantzungo yautsoen ba, ain bidez egiten yaken itaunari.


—Yazokun onek gauza asko bururatuten yaustazak, baiña au luze yoak eta urrengoan yarraitu bearko yautsoguk.

—Agur ba, mutil eta ondo ibilli.

URIGOITIA



Itxaro daben oparia bera eskeiñi egiezu



Zorion-agur onekin

Ez dozu zoragarria dala uste Gabonetako oparietan ziur jokatzea?

Gure edozein lantegitan uste dozun ordain zeatzakin (ta txanpon bat ez garestiago) Opari-Txartela erosi daikezu.

Eta jaso dauanak gure lantegiren baten diruz aldatuta nai dabena esori lei.

Eta jakiña, zure zorion-agurra gorde.

Opetsizu nai dozun ordaiña, txikiena be bai.

BANCO DE BILBAO (BB)

OPARI TXARTELA / BANCO DE BILBAO

Bada ez badako irribarreak... jator biurtzen dira.

TXARRAK UTZIZ, BILBO'RI KANTUZ

Gure Bilbotxu, Bilbo dogu-ta,
Ez dago Bilbo langorik;
Begoñatiko laztan guztiak
Geuretzako diralarik.
San Nikolas'ko eleiz-aurrean
baratz-txopoak zugadi,
Arriaga'ren intzez buztita,
guztiak musikalari.
Bilbo'ko txoko orixe dogu
Eresiaren euskarri.

* * *

Baratz-ostean, ibai erdian
Itxas-txoriak igari,
Ango eresiaren soñuan
Txipli ta txapla dantzari.
Ibai-ertzean ontzi lirañak
Mosuka gure kaiari,
Euren sabelak treznaz beterik,
Janariak be ugari.
Ortxe dabiltzuz mundua-zear,
Eruan eta ekarri.

* * *

Igande goizez Udai-Etxetik
Urtenik txistulariak,
Orretzaz zerbait ba'daki gure
San Anton'go etizpeak.
Taparratapa, txiruliruli
Antxe bai soñu alaiak!
Eleiz ta zubi damazalako
Bilbo'ko ikur maiteak.
Berak damotsoz bilbotarrari
Indar ta kemen guztiak.

* * *

Orain gizaldi batzuk dirala,
Zazpi kalekin asiko;
Orduan txiki zan, koxkondu jatzun,
Laister egin zan mutiko.
Azi ta azi, gizon andi da,
Egundo ez da zartuko,
Orain Asua'n bular barriak,
Seguru asko betiko!
Jainkoak orla nai izan bedi
Bilbon zorionerako.

* * *

Lanean trebe-trebeak dira
Bilbotar geien-geienak;
Burdiñak-burdin, ontziak-ontzi,
Tren-makiñarik onenak.
Erakusketak ortxe daukazuz,
Mundua arritzen dabenak,
Ospe andia gure Bilbo'ri
Errime emoten dautsenak.
Burni-ganean sortu zan Bilbo
Galtzairuzko ondorenak!


* * *

Ibai-ganean sei zubi eder
Eta euretariko bi,
Nai dozunean itxiten dira,
Nai dozunean iriki.
Beste bat Portugalete'n dago
Axe zubi erraldoia!
Bere azpitik ontzi guztiak
Txairo igaroten dira.
Txoritxu bat lez aidean dago
Agurka mundu guztira!

ABELETXE

KIROLAK

JARDUN EBENEN AOLKUAK



Goian eta ezkerretik: Zubiaga, Del Río (G. B.), Eloi ta Isasti.
Beean eta ezkerretik: Pinedo, Aranbillet (G. B.), Paco Bueno ta Ibarrondo.

IBAR ETA AZPIAZU'TAR JOSEBA...

Adizkide on ori:

Ukabilkari izandako guztien izenean, zorion-agurrik beroena egiten dautsut Azkoiti'ko probalekuan zure idi-pareagaz izan dozun garaipenagaitik.

Ordizia'ko Argoin'en idien aurka izan zan jokoa 2.831 kiloko arriagaz. Ikuslez gonbururaiño bete zan probalekua. Argoin'en idiak jokatu ziran lenengo, Izeta, Patxolo ta Endañeta laguntzale zirala. Idi-pare orrek 1.262 kilo pixatu eban ta 245 kiloko zama artu bear izan eban. Ogetamar miñitutan, 20 untze ta 2,55 m. egin eben.

Ondoren zure idi-parea, Gorria, Markiña'ko Leoia ta Idurre laguntzale zirala. Idien pixua, 1.274 kilo ta 261 kiloko zama ganeratu yaken, baita beste 62 kilo t'erdi, zuk Argoin'i emondako aldea. 25 miñutu ta 6 segundo igaro orduko, zureak bardidu al izan eben Argoin'en idiak ordu erdian egindakoa.

Garaipen bete-betea zurea, Urtain! Ekarri daigun gogora, joan dan Urrillean Loiun 20.000 ogerlekoz erosi zenduala idi eder bat.

Aupa Joxe Manuel!... Or bai dala euskal giroa!

Ekarri egizu Euskal-errira Europa'ko ukabilka-txapela, ta laga gero kirol-gizarte ustel ori beste orrentzat, Odubote ta antzekoentzat.

Besarkada andi bat. Zure adizkide.

IBARRONDO'TAR DUNIXI'K



Zer jazoten don ba?

RONNIE ALLEN

AGUR



Zure agurra erderazko izparringietan irakurri dogu ta gizon lez erantzun dautsezu egin eutsuen alkar-izketa orretan.

Zer jazo da? Urte bitan izparringi guztietan madarikatua izan zara. Izparlari orreintzat beste elbururik ez egoala irudin: zu botatzea.

Orain, lortu dabe, baiña Atletik'eren aldeko kirolzale geien-geienak ez datoz orregaz bat. Eredu ederra emon dau Bizkai'ko erri kiroltzaleak, ez da izparlarien morroi izan. Orrela ba'litz bizitzako beste arazo guztietan... baiña zure au be zeozer da, erakutsi bat besterik ez ba'da bere.

Orain zer? Egazkiñak bezela igoko ete-dau Atletik'ak? Berez? Orduan zerek lotu izan zaitue orain arte zu ta mutillak?

Dana dala, gutzat ez da Ronnie izan errudun... eta pozik ikusten izan doguz berebilletako «Gora Ronnie» txarteltxu orreik.

Agur Ronnie, ta eskerrik asko euskaldunentzat izan dozuzan itz goragarri orreikatik!

IZAR

ONA

ta

RAM

EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

IDAZTIAK LAGUN

Liburu bat, lagun bat da
liburu bi, lagun bi
milla liburu, emaztearen asarrealdi bat,
etxean leku aundia bear dabelako.

* * *

Ba-dira idazti aundiak...
mamin txikiagaz...
Ta idazti txikiak...
mamin aundiagaz...

* * *

Emakumeen areriorik aundienak...
janari konponketako idaztiak dira.

* * *

Errezena liburu bat idaztea da...
gatxena... argitara emon al izatea.

* * *

Liburu askok, emakumeen antz aundia dabe...
azala ederra...

* * *

Guda batek daukan gauzarik onena, gero beratzaz liburu asko idatzi leitekezela da...
ta batzuk sari ta guzti.

* * *

Eztago idazti onik eta txarrik,
irakurle onak edo txarrak baizik.

* * *

Liburuak gizonaren lagunik onenak dira...
berau lagunik barik geratzen danean.

* * *

Umoredun liburuak, zerga barik izan bear litzakez...
olgeta bat baiño eztozu... Jakiña!

GARATEA'TAR K. M.

ARRASATE'N ERAKUSKETEA

«Danok» alkarte langille orrek jakiñerazo dausku, an Arrasate'n eta Gabon jaiak urreratzean, datorren Lotazillaren 18 larunbatean eta 19 igandean, Euskal Idazti eta Diskoen Azoka berezi bat izango dala. Erriko emparantzean izango dira erakusketa-txabolak.

Idaztiak ugaritzen doaz, irakurleak be bai, jakiña, gure erria euskaldun kulturaren jabe egingo ba'da, irakurle izatera eldu bear aurretik, ta ori da AGUR onen elburu gorenengoa. Irakurri, irakurri, irakurri! eten barik eta beste edozertarako ipinten dozun alegiñik aundienakin ekin be. Ori be burruka bat da, ospe aundi bakoa nai ba'dozu, baiña indar aundia eskatzen dabena ta beste burruka asko baiño bearrezkoagoa.

ASTI

Idaztiak. - Datozan jaietarako opari ederrenak

GURE IZTEGI NAGUSIA: DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES, Azkue'tar R. M.'rena.

Ber-berak egin eban axe barriz argitalduta (ogei urte dirala. Antonio Tovar euskalari ospetsuak bearrezko lez eskatzen ebana). Zati eder baten, amaieran, beste 5.000 itz geiagokin osotua, egilleak berak 50 urte zear batuak. Itzaurrea: Gorostiaga'tar J., Xerexeta'tar J. ta Akesolo'tar L. euskaltzaiñak idatzia. Euskal idazle eta jakitun guztiak goratua. (Ale bi, narruzko azala).

* * *

CANCIONERO POPULAR VASCO, Azkue'tar R. M.'rena.

Euskalerriko abesti ta soiñuen bilduma ikaragarri ta zoragarria. 1912'gn Euskal Aldundiak eratutako saria irabazitako lana. Iparramerikar folklorelari ospetsu Edward Blis Reed'ek idatzi eban: «Lan au, idazti yayoa berez, erri-abesti jakintzan diarduenentzant bear-bearrezkoa da». Itzaurrea, euskaltzain gorenengoa dan Lekuona'tar M'ek eta J. M. Retana'k idazten dabe. (Ale bi).

* * *

DICCIONARIO HISTORICO-GEOGRAFICO DEL PAIS VASCO, Real Academia de la Historia'na.

Lenagokoa ber-bera barriztuta, 1802'gn asmo biurriagaz bazkun orrek argitaldua. Idazti onetan Euskalerriko erri, uri, auzo ta baztar —bi millatik gora— agiri dira, bakoitzaren edesti, jazoera, seme jator ainbat ta zeaztasunez osotuta. (Ale bi).

* * *

DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO VASCO, Kerexeta'tar J'rena

Ogetabost milla abizenetik gora, erderazko euren itzulpenakin. Jaiotetxe, jatorri-agiri, lau margodun armarriak millaka, amaieran Gerra'tar Juan Carlos'ek batu ta argitaldu bage utzi euskuzan Garibai'tar Estepan'ek XVI gizaldian batu ebazan euskal jatorrizko argitasunak. (Lau ale, narruzko azal ornituak).

Eskatu zeaztasunak LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'ra, Bilbo'n, Prim, 43-3.º Urrutizkiñak: 23 66 05 - 24 33 01 - 24 87 93.

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k idazti eder eta garrantzitsuenak argitaldu edo, lenago agortuta egozan euskal-pitxirik zoragarrienak, barriz eskuratu dauskuz. Aor, Azkue'ren iztegi ezin obetua; euskal abestiz gainezka datorran beronen Cancionero Popular Vasco; RIEV, entzutetsu ta jakingarria; Kerexeta nekatu-eziñaren Diccionario Onomástico y Heráldico, aor, beste orrenbesteko erraldoien artean «Peru-Abarka» euskaldunen «liburu gorria». Gaur baiña, zure aurtxoak gogoan daroguz, ta emen dakartzuguz erregenetan, jostaillu apurtugarrien artean *ipiñi* barik itzi ezin daikezuna, euskerea umetxo orrein ezpanetan maite ba'dozu beintzat:

Ipuin Ederrak:

1. Pinotxo; 2. Txano Gorritxu; 3. Iru Txarrikumeak; 4. Mari Errauskin; 5. Laminña Ulegorritxua, ta abar, ta abar 16'ra arte.

Abere Alaiak:

1. Duri Kattagorri; 2. Terry Artzakumea; 3. Dudu Zalditxoa... oneik 9'ra arte.

Nora eskatu? Edozein idaztegitara, edo La Gran Enciclopedia Vasca, Prim, 43-3.º Bilbao-6; Urrutizkinak: 24-33-01; 23-66-05; 24-87-93. Apartado, 1.510. Bilbao.

UDAZKENEKO OARKETA

Uadabarria izan oi da urtearorik begikoena. Bere negu ondorengo itzartze arrigarri, bere ezetasun ta bizitasun itxaropentsu; bere goraldi baikorraren bultzada ernemindu; bere loratasun ta txori txintada alai; bere eguzki indartsu ta, euri gozatsuz, margo atsegiñez ta pozez betetzen ditu inguruak, edertzarik ibilgarrienez... Ta, gizona, egazti, zomorro ta, abar, bizidun guztiakaz batera, aldi baikor, atsegingarri orretan, biziago, ameskorrago ikusten dogu, bizizatearen eragin, gorakor, alai ori bereganduz... Aunitz olerkarik, etengabe, aldi eder oni buruz, berein poema bikain, neurtitz egoki, goralgarriak idatzi daroez, irudimen bizi ta ametsik lilluratsuenez, maite-eresi ta, agur sutsuekaz biozkiro azalduz. Ostera Udazkenak pentsakor, oldozkor iartzen gaitu geure barru-barrura, geure giza-izate, gerora begiratuaziz... Geienetan, Euskalerriko Udazkenak orlegiaz naste, margo ori-gorri ta ederrezkoak izaten dira; egualdi epel ta, ikuspegi zoragarriak. Baiña, Udazkenak, bere egun batetik besterako aldaketa, beeratze mingarriz, Neguaren lorratz-bide illun, egun otz, egun edertsu ta bustietara garoaz, aize zirimolduen abornada gogorrez...

Lur orbeltsu ta zugatz billoiztutako ikuspegi laiñotsuan, txoriak aldendu, ixildu ziran, zomorroak ezkutatu, ostendu ta, izadia bere orlegitasun ta ezetasuna galdurik, aul ta indarge, laiñoz iantzia nabaitzen, sumatzen dogu, bere balbetiar eskeintza zital, logura aztunean...

Ona emen lurperatuta gure ameskizun eder, gure len-egun, gure igarobide atsegin, egun argiak! Izadiaren aldakuntza nabarmena! Zer dala-ta? Zeren bidez? Euriteak, ugoldeak, egun otz eta motzak, egun illun tristeak!

Zein ez da konturatzen izadiaren aldakuntza nabarmen, irudi itun onen bidez, gure bizia be, bizi luze, bizi laburra... olaxe doakigula bein betirako iges? Gogora datorkit, oraindik zorionez bizirik dogun ta, ain olerkarime ta idazle trebe, errimea dan gure Tene Mujika. Bere «Udazken-Ala» olerki bioztian, onela abestutzen dausku: «Juan zaigu udara, juan da igesi —eramanik bere alaitasuna— juan zaigu udara, ta juan dala, mendi ta ibarretan txit ezagun da».

Bai txit ezagun, oso ezagun aurkezten daku bai, udazkena: egun motz, laiñotsu, euritsuak, ta, noranai begiratuz gorri-nabar dakusguz inguruak; iratza makurtuak, zugatzak billoizik ta aizearen menpe orbel eroriak...

Giro makur, beerati onek adiñeko gizon eldua dakarkigu gogora, bere kaska zuri, ule bakan, ibilli aztun, begi lausotuen begirada aztunez, lurrera makurtua... Agur dagisku biziak, agur! Agur ituna izadi-bidez Udazkenak damoskuna, bere beera-bearrezko ioate aztun, illunean! Gizona izadiari lotua bizi dan ezkero, ikus-mira, ispillu onen bidez neurtu ta, ikusten dogu bere bizitzako igaroaldi, adin, goraberatan. Gaztaroa indartsu, alai, ameslari. Zartzaroa makal, barrukoi, illun. Bata gora, bestea beera. Bizitzako legea. Baiña, zar edo gazte izate ori, ez da urteakaz neurtzen dana, baizik gizatasunezko eroapen zabal ta adorez, bere egintza ta iakituri, bere bioztasun ta itxaropen sendoz. Zar-gazte asko arkitzen doguz ta, gazte-zar asko bizitzako bidean. Batzuk gazte izanik, garairik indartsu onenian, aul, kikilduta, indarge, biozge, epel, il-ez-bizi dakusguz, espiritu ta itxaropenik, ezeren gogorik ez daukatela, buruz-bera koldarturik... Zar asko ostera, gorputza makal ta, oiñak arrastaka ibilliarren, baikortasun sendo, espiritu aurreratsu, eragin bulartsuzko adimen ta bioztasun betean diardute, oraingoz ta gerora begira... Bai, zeiñek esan dau agure zar baten bizia gau triste batean amaitzen dala? Ez! Izadia udabarriro ernaltzen, barritzen, biztutzen dan antzera, gizona be, bulartsua dan gizona, ta askoz obeto siñismenduna baldin baida. Beste etorri, bizitza barri ortarako gertua dago ta, eriotz aztun, balbe itzel orrek ez dautso bildurrik sartzen. Oraingoz ta gerokoz bizi da gizon ori. Ta, lan dagi gogoz, alduan-arte, bere sendi, aberri, gizarte, gizadi-alde... lan dagi, bere ondorongoentzat zerbait onurakor izteko ardura, bioztasun zabalez... Beraz au dogu gizona, biztzari arpegi emoten dakiña ta, Negu baltzari Udabarri-ametsez itxarokor begiratzen dautsona.

MUNIATEGI'TAR SABIN

EUSKAL HIT PARADE

«Itxasoko Erregea», Biotz-Alai'koen biribil eder ortako abesti polit au dijoa aurrean, eta zati baterako izango ete-dan ziñestu be, baiña... emendik Gabonak bitartean zer ikusiko edo entzungo etedogu. Batetik San Anton Abesbatzaren abesti bilduma barria, bestetik «Euskal Meza» zoragarria, ta ara ixil-ixilik zarata aundia egingo daben bestea edo besteak. Donosti'ko Usandizaga Diskoetxeak lau biribilletan Euskalerriko abesti gorenengoak dakars: Aita Donosti, Guridi'tar Josu, Zubizarreta, Iruarriza-ga'tar Koldobika, Remacha, ta Olazazan Aitak idatzitako doiñuak.

Ori alde batetik, bestea ez da makalagoa: Milla abotsek abestuak izango dira, ez danak batera, zatika baiño. Ara: Abesbatzak. Arrasate'ko «Danok», «Donostiar Abesbatza», Iruña'ko Abesbatza» eta Bergara'koa.

Bietariko abestaldeak: Errenderi'ko «Andra Mari», Lizarra'ko «Estellesa», Gazteiz'ko «Iradier», Oiartzun'go «Lartaun», Iruña'ko «San Jose», Tafalla'ko «Tafallesa», ta Irun'go «Ametsa».

Abots-bardindunak: Gazteiz'ko «Araba» eta «Blancas Iradier», Deusto'ko «Deustotarrak», Biarritz'ko «Oldarra», Bergara'ko «Umore Ona».

Gela eres-batza: Iruña'ko (Morondo).

Mutiko-abotsak: Donostia'ko «Miren' en Biotza», Iruña'ko «Andoni Deuna».

Zortzikotea: Aiñorga'ko «Ertizka».


Ta bilduma onen izena: «Antologia Coral Vasca» Euskal-abesteli Lorasorta ederra. Lau onetatik eta beste lau goiko orreitatik, zortzi biribil egiten dabez, Gabon-Urtebarri'ko jaietan entzuteko eta biotzeko adizkideari eskeintzeko berezibereziak. Ea ba, gorde txanponak eta ez turroi edo loterietan sakelak ustu. Soiñak berea bear dau, orri egunero emoten dautsagu; gogoak ostera ez dau orrenbeste zalapartik egiten, emoten ez ba'dautsagu baiña, or doa lotaratzen. Ta eusko-gogoak iñoiz baiño janari geiago bear dau.

ASTI'TAR PERNANDA

ITZ-EUNDUAK

(XX)

Etxebarria'tar Juan Anjel



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Lasterka.—B: Konsonante; Orkoa; Andra-izena.—D: Lokarritza (a. a.); Urten (G); Gerok (a. a.)—E: Gauza dana (a. a.); Euskal-abizena.—G: Lokarri-itza; Piztia; Bokal; Konsonante.—I: Ume; Eralgiteko tresna (a. a.); Edatekoa.—J: Konsonante; Bokal; Zurr; Onurazko (a. a.)—K: Artzain; Txorien eria.—L: Leku orretan (a. a.); Bazterra; Konsonanteak.—M: Zartada; Auts; Bokal.—N: Indarra ematekoa.

GOITIK BERA.—1: Eten; Adur askoduna.—2: Bokal; Alkartu; Joan nadin.—3: Leku orretan (a. a.); Euskal elebarria; Konsonanteak.—4: Uri; Izketan.—5: Izar dizdira; Sutatikoa; Oarpen.—6: Bokal; Konsonante; Du (a. a.); Konsonante; Konsonante.—7: Izen ebakia; Miña baretu; Lantegia.—8: Oiala; Ume.—9: Atzizkia; Txakurotsa; Konsonanteak.—10: Bedarki mingarria; Ur gabe (a. a.); Bokal.—11: Nagikeran; Jatena.

XIX'aren agerpenak:

Zearretara = Ogi.—Apari.—UgaritzaD; R; K; rA.—Abaro; Izdun.—kuZ; irO.—Orkoi; aonrA.—uE; A; L; Da.—Naskatu.—Lauko.—niO.

Goitik bera = Ako.—Aburu.—UdazkenaG; R; O; Al.—Oparo; iasaN.—Gar; Kui.—Iriki; Alako.—It+z; O; To.—Urdindu.—Aurra.—Noa.

Basauri

Pausti deunaren jaiak bigarren astean amaitu dira, ta erok zirala-ta urduritasuna sortuaz doiala esan leiteke errian, baiña naizate orretara iritxiteko, aurretik aldi ontako gaztedia gertatu ta osotu bear da, aurtengo jaietan ontasunak erakutsi ba'dabez, akats andiak be izan dira.

Aurten, errijai egokiak ikusteko zoriona izan dogu, ta eurotatik pozik urten izan gara. Tamala baiña urtean bein baiño sarriago ezin ikusi izatea, erriko Goi-zaindariaren jaietan.

Asteko, Bilbo'ko «Ensantxe Abesbatz» ari entzun geuntzan. «Naste-Borraste» antzezkizuna erderaz antzeztuten da, baiña oso atsegiña izan zan bertaratu zan oztetzarentzat, ederto antzeztu eben-eta. Urren, jai orretan bertan, urte batzuetan abestu barik aurkitzen izan dan Basauri'ko Abesbatzak abestu euskun, ta goralpenik andiena lortuaz, bere sorkeratik zizdarrezko ezteguak bete ebazan, ta ondo egin be. Gure zorionak eurei!



Beste garaille bat be izan genduan abestaldi ortan: Portugalete'ko «Danok Bat» taldea, lenago be emen egona. Talde onek Italia'n irugarren saria lortu ebaneko euskel-abesti oroigarriak eskindu euskuzan, Europa'ko beste abestalde askoren artean sarituak izaneko abesti txukunak. Benetan ederrak abeslari oneik be.

Amaya mintz-aretoan, «Los Turkos» taldeak antolatuta euskel-abesti jai bikain bat be ospatu zan. Bertan agertu ziranak oneik ziran: Mundaka'ko Egileor'tar Zorion, Bilbo'ko «Ozkirri», Patxo ta Arratia'ko «Oyartzuna», baita Basauri'ko «Oporrak» abestalde barria be, neskatil eta mutil biñak osotzen dabena. Danak izan ziran guztiz txalotuak.

Jai onen azkenengo egunean, Iruña'ko Abesbatzak, gaur daukagunik onenetarikoa bera, ekitaldi oroigarri baten ta goralpenik izugarriena lortuaz abestu eban. Sutsu ta atsegiñez txalotuak izan ziran antxiñako Iruña'ren napar semeok.

Esan bearrean gara, ainbeste nekegaz Basauri'ra ekarri diran abestaldeok eta gure gogoak alaituten ametsez beterik etorri diran talde bikaiñok, eurotariko batzuk gure Errian ospe andiko maillan aurkitzen diranak, ez dabela gure artean bear eben notintzarik izan, zergaitik? Abesti ta eresi mamintsuentzat bear litzaken zaletasunik ez dagolako? Ala, euskel arazoetan bear dan bestean sakonduta ez gagozelako?

Gure ustez, uts bat egin da bear ba'da: iragarkiak erriko ormetan eguna bera eldu arte ez ipintea. Ez dago antolatzale taldeari zetan errurik ezarri. Onek gauzak ondo egiteko borondate osoa ipiñi eban. Beste talde batzuk ostera, eurak jolastuteko bakarrik sortuak dirala esan leiteke, orretara eziña edo gaitza da gauza onik egitea; jaiterako alkartzea da bear dana, urtearen luzeeran gauzak bear diran lez gertatuteko, naita urtean beingoa izanik ondasun andirik ekarri ez. Ondo da jolastutea, danori jaku atsegin, baiña jakintzea be bearrezkoa da, ezinbestekoa dogulako.

KOLDO

Usansolo

EZKONTZEA

Arana'tar Juan'en semeak be abi bariak egiten asi dira. Larra'ko eleizan, Ama Bijiñaren magalpean, Sabin seme zarrenak sendi jator bateri (nire ustez beintzat) oiñarria ipiñi eutson, igaro dan illean.

Trokarro'n barik, Zornotza'n izango da emendik aurrera bere bizi lekua, baiña gure artean sarritan ikusiko dogula, ziur nago. Zorionak Sabin, baita zure emazteari be, ta aitaren esanak galdu barik, zintzo jokatu sendi barri orretan, gure euskera ta oituren alde.

EUSKEL-ARDURAK Bai, ba-dago gure artean euskera-ardurea. Kristau ikasbidea ta euskera apur bat geiago ikastera, igaz baiño ume geiago alkartu dira, baiña (beti itz au bitarte) zergaitik irakasle edo laguntzale gitxiago?

Sendiak arduratsu dagoz, ikasleak geroago ta geiago, baiña, nork erakutsi? Gure umetxoeri euskerea irakasteko, ez ete-dago gure gazteen artean, gure izkuntza maite au naiko dakianik? Orain arte naiko otzik egon gara arazo onetan, baiña orain sortu dan giroa ikusirik, egin izan diran bear guztiak, alperrikoak izango ete-dira? Gure zaletasuna barriro be, len lez geratuko ete-da? Labea ta Usansolo'tarrok, ez gaitezala gure Errian lotsagarri agertu!

Dana, urte pare baterako da. Ordurako, guar euren euskerea barriztuten dagozan ogeietatik, batek baiño geiagok, irakasle egingo dabe, bai orixe!

Ez, ez dozue oker irakurri. Ogei neska-mutil, baita ezkonduak be euren artean, gure izkuntza kutuna ondo ezagutzeko gurariz. Eurentzat gure txalo beroenak.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Galdakano

Ez dago zalantzarik. Aste osoa lanean (eskuzkoan naiz buruzkoan jardun) igaro daben gizakiak ta zerbaiten ardurapean dagon edozeiñek, bearrezkoa dabela igandea ta jai-eguna. Jolas edo asazkaldi baten bearrean aurkitzen dala, bere burutasunak argitu ta bizibidea pizka bat txukunduteko daroazan soin-neke astunak aztuazoteko. Bakoitzak bere zaletasunean, baiña eguneroko oldozpenak alde batera itzi ta bizia gozatuteko. Ez dakigu oker gagozan, baiña gu orretan gagoz, eta igandero mendirikmendi ez ba'gabiltz be, bai aixe osagungarria arnastuaz gure Ama-lurreko ezkutuak ezagutzen, edo sendia artuta, udan beintzat, itxas bazterren baten, edo Gazteiz ondoko Gamarra'n be sarritan. Or aurkituten dogu Euskalerri'ko jolastokirik egokiena, baita atsegingarriena be.

Atsegin yakuz itxas egaleko ondartzak, orrein kresal usaiñak... eta zelan ez! Bakio, Bermeo, Lekeitio, Ondarru, Zarautz eta orrenbesteren eusko giroak. Baiña sarritan itxi doguz orreik, Gamarra'ko jolas-toki kerizpetsu edo eguzkitsu (norberak nai dabena) zabalean izatearren. Bertan aurkitu leiteke, kresala izan ezik, beste toki askotan ez dagona: atseden baketsua, baita alaitasuna be illobatxo ta beste umetxoen arrisku gabeko jolasak ikusten. Gazteiz'ko Udalak, Araba'ko Aurreski Kutxa'ren laguntzagaz, egintza onik egin ba'dau, Gamarra'ko jolas-toki au izan da onena, beste eusko uriburu ta erri andiak eredutzat izan bear leukeena.

Gamarra ortan egon naizen bakoitzean, gure Galdakano'taz eta beste uri ta erri andi askogaz gogoratuten izan naz: Bilbo, Basauri edo umeak non jolastu ez dauken beste erri biztaletsu askogaz. Egia da, gure erri ontako Udal-gizonak kementsu diardue Elexalde'ko txadon ospetsuaren inguruan jolas-toki eder bat egiten: ostikoketa-landa, igiritegi, pelota-leku ta abar; pizka bat erritik urruntxo, baiña tira. Eta beste atseden-baratz bat erriaren erdian, bitxabal geiegi ondoan bear ba'da. Baiña jolas-toki ta baratz orrein egiturak ikusita, batez bere atseden-baratzarena ikusita, ez yaku iruditzen umeen jolas-toki lez, naita milloi asko eralgi euron egintzan. Apaiñak, ikusgarriak izango dira dirudienez, baita bearrezkoak bere, baiña ez guk nai genduzanak; umeentzat egokiak.

Gure erria oraindik zabal aurkitzen da. Lurralde bat baiño geyago dauko utsik; landuta bai, baiña etxez betetu barik. Umeentzako leku egokirik gertatu leitekelakoan gagoz. Ez ostera emendik urte batzuetara, doan eran, aldi gitxi barru, etxez eta landolaz beterik izango dira be-alde guztian. Orduan non eukiko doguz edo zelan aziko doguz soiñez gure umetxoak? Edozeiñek daki atsedena baizen bearrezkoa dabela umeak jolasa, aziteko ta indarteko baita jakintzarako adimena argituteko bere. Ori dala bitarte, lenago esan doguna barriz esango neuskioe erri-agintarieri: artu dagiela iruditzat Gazteiz'koen eginkizuna, beranduegi izan baiño len.

URKIZA PELOTARIARI

Jakitun gara Urkiza'tar Bittor'ek, Zaratamo'ko pelotariak, pelota-jokoa ogibide lez artu barria dabela, ta lanbide ortan ondo asi dala, lenengo jokaldia Gazteiz'en erraz samar irabaziaz. Ori dala-ta, benetan poztu gara, ta beragaz dogun adizkidetasunagaitik bere garaipen ori geurea lez artu dogu. Zorionak Bittor AGUR'en bitartez, eta jarraitu ea gorengo maillan be txapeldun ikusten zaitugun.

BASA-JAUN

Arratia

Arantzatzu'ko gaztedi geldi-eziñak jo ta ke diardu antzerki zaarrenetariko bat ikasten. Lotazillaren sarreran errikideen aurrera agertzekotan dira, eta geroago, Lezama'n eta Aramaio'n. Txerren-deabru, artzain, gotzon eta arratiar neskatillarik begikoenakin osotua izango dan taldea ikusteko erea laster datorkigu.

* * *

Buztarpeko idiakaz solo-lanetan, landetan bei-zaiñean, asto koskor belarri beerakaz errotara ta abar, edonoz eta edonon ikusten izan genduzan, ibar onetako baserritar andrazkoak, oraintzu arte. Orain baiña, egunero ta eperik barik biziera obearen billa aurrera ta aurrera egiñez doakigun burpil-txirrindulariari loturik biziten asi giñan ezkerotik, galduaz joan dira baserriaren irudi biziak izan diran etxeko andrak.



Akulupeko ididun gonadunik ez dogu ikusten, eta astoaren atzetik errotetara doanik bere ez. Orain oso besterakoak ikusten asiak gara: itxuraz eder odol garbiko eper txakurrak soka-muturretik dituela, arrorik eta txairorik, gure gaurko amonatxoak, goizilluntzeetan.

Batukeriaren arautegiari jarraituz, au lez edo aulan esango neuke nik: «hori bait dela hori, progresaren progresiozko progresioaren progresamendua».

* * *

Aspaldiko Patxi Lemoa'ko Flecha auzotegian bizi danakin izan gara. Ordubeteren buruan, izerdi patzetan, gizonen arteko korapillo guztiak azkatu ditu, baita zakatuak lotu bere.

Aberatzak narru gorrian itzi ditu, komunismoa ezeztatu, lankiderik geienak errukirik barik jo... bere burua bakarrik gizon agertu. Beronen prakak bere, baiña, neurtu-bearra dabe-ta, beste egunen baten izan bearko.

* * *

Gero Arte, izeko! Arteaga'ko Errotabarri'ren aldameneko Zizili joskillea, jostuna, joan yaku betirako (G. B.) Makiñatxo bat errikidentzat amaika gona magaltsu ta praka barri egin izan zituan.

Azken arnasa ta begiak Bilbo'n itxi zituan, eta soiña Derio'n lurperatu. Illeta-eleizkizunetan, azken agurra egiten, arratiar asko izan giñan. Otoi bada, arteagar eta enparauok, Zizili jostuna zanaren alde.

LANDAJUELA'TAR A.

Bilbao

Bilbao, astiro samar ba'da be, egunero, urtero barriztatzen doakigula begiztatu oi dogu. Arritzekoa litzake bestera izatea. Lur lau-ezak ta diru premiñak sarri askotan ala ta be —geienbat gure txanponak laterri-altxorrai ta zergai erantzun bide, kanpoko bidea daroenez egiazki— ez dauskue lagatzen aurreratze au gura geunken aiñakoa izaten.

Bilbao barriztuta, aundiagotu ezeze bertaratu diran salerosteak be onetara doaz, euren dendak barriztatzera, gaurkotasunean jartzera; ta zer esanik ez, gure bein-beiñenak ta bertakoak diranak, zazpi kaleetakoak berebat. Or dozuez Somera-Guenkale, Artekale t'abar, azpiak ezezik barrenak ta azaleko itxura ta apaingarriak ere berein saltokieri damotsezela.

Ez dogu urriñera joan bearrik. Gure Bilbo'ko parte-zaar ta zazpi kaleetan gurain ta guztirako dendak doguz. Ots, tximist-tresna saltzailleak Beristain, Arguiro ta abar. Gozokiak eskeiñi daroezenak Manucanela ta Santiaguito esate baterako. Miesak, eunak ta bestelako soiñekoak salgai dabezenak Cearra, Zubiri, Aldazabal anaiak, Barandiaran, Artiba ta orrelako beste asko.

Burdin-tresnadunak, Ercoreca ta La Union euren artean. Argontzi ta edergailluak Urrutia'ren sal-etxean; Juliantxo'ren usain eta apaingarriak; ta zerrenda luze samarra doanez, amaitzeko idaz-saltoki puntererenetarikoak Verdes euskal-gaietan aurrenengoa, Azkartegi ta Vizcaina. San Miguel idazti ta disko banatzaillea be aipatzea deritzat, euskerazko liburuen emaille errimea bera.

Eta orain gogorapen bat, Salostetxeak, denda galant-itxuraskoak, geienak kanpotarrak atan be jaso dira Bilbo'n, leoian partea artu-emonetan darabillela, euskaldunenai zati txiki bat itxirik, guzti au begiztaturik ba, ez ete leitekez, diñot, bilbotar orok bai zazpi kaletakoak baita goiko aldekoak be batu ta etxe-guren bat eregi.

* * *

Ipar aldeko euskaldunak Urrillaren bostean asita amabostero —ille bakotxeko lenen ta irugarren astelenetan— euskerazko egitamuak urrutikuskin prantzesaren bidez begiztatu oi dabez. Ordu laurenean bakarrik, ta egitamuaren izen burua «Euskalerria orain eta gero» ei-da. Donosti'tik aruntz eta Getari'n be pozik dagoz, eurak be ikusi oi dabelako. Noiz esan ete geinke egoaldeko euskaldunok beste ainbeste? Datorren urterako ba'litz gu bere poztuko giñakez.

ARREGI'TAR JOSU

Elorrio

Poz aundia susmau dot neure biotzean barri au irakurtean. Arrasate'ko medizaleak gurutze der bat zut ipiñi dabela Udalaitz-eko tontorrean. Benetan gauza arritzekoa. Orain alde guztietatik kristau usaiña daben ezaugarri danak uxatuten dabiltzanean, gurutze bat mendi gaiñeko agirian ipintea! Ba-dira oraindiño Euskalerrian biotz garbi ta onak. Asko ta asko bateatuen artean ere mitoak kendu bear dirala diñoe. Ta Kristo bera ere mitotzat arturik alde batera itxirik beste guzurrezko ta gizon bakarrik diran mitoak artu ta goraltzen ditue.

Gurutzea da gaizkatzaille baita ta jarraille ere. Ekin ta ekin lan ta lan, gurutzea da bizitza guztia. Baiña biotz onez eroandako gurutzeak dakarsku zoriona. Txiki-txikitatik auxe irakatsi euskuen gure gurasoak: Gurutze baga ez dagoala zoririk.

Udalaitz inguruan jaioa naz. Eta bertako gurutzea ikustean, auxe gogoratzen dot: Mutikotxoa nintzanean niri baita nire lagun batzuei ere auxe esan euskun gizon ta jakintsu batek: Lanak eta nekeak gero atseden ta saria dabez. Ikusten dozue or dagoan Udalaitz? Ba... bertara igoteko aldapa gogorra dago. Baiña igoten danak sari bat aurkituko dau gain-gaiñean.

Lau edo bost mutiko igon giñan egun bero bero batean Udala gaiñeraiño. Urak bai izerdi, arnas estu ta laprastadak! Baiña nekez ta abarrez ere eldu giñan goi-goiraiño. Bertan egoan kutxatxo bat diru pizka bategaz. Ori izan zan lanaren saria. Baiña ez ori bakarrik. Baita bertatik agiri zan ikusmira zoragarria: Anboto, Aitzgorri, Intxorta, Gorbea, Aralar, Oiz eta ainbat mendi gogor eta bigun. Baserri eder, zugazti izugarri ta zelai bigunak, agiri ziran.

Bizitzea nekea ta gurutzea da. Baiña gurutzearen ostean Berbizkunde, atsegin ta poza. Or dogu, ba, orain gurutze bat Udala'n. Bera ikustean gogoratu gaitezan Jaunaren izenagaz. Bizitzako gurutzea indartsu ta pozik eroan bear dogu. Euskaldun guztiok bata bestearen aurka ibilli barik, eta alkarturik, egin dagigun lan Jaunaren eta gure Erriaren alde.

Udalaitz goian agertu yaku
gurutze bat maitagarri.
Bere oiñazpi gogor ta bigun
bikain dala Euskalerri.
Araba, Bizkai, Gipuzkoa'tik
zugan doguz gure begi.
Kistar biotzen itxaropena
indar, adore ta argi.

Mendizaleak bai gizon garbi.
Beti goruntza begira
noizean beinka goi-goitik bera
erorita irten dira.
Euren gomutez, lagun maiteak,
gurutzearen dizdira
jarri dabe gaur, bera ikusiz
iñoiz kilkilduko ez dira.

Arrasate ta Elorrio'tik
zuganuntz doa gau ta egun
lugin, langillen lan ta bizitza.
Aintzazko intsentsu-lurrun
gure Errian maitea zara.
Zure laguntza, maitasun,
Ixuri gugan uda beroan,
bai illun, otza dan negun.

GALLASTEGI'TAR KAULDI


Euskaldun Bat Suezia'n

GIZONA, AZKARRA TA LASAIA

Stokolmo'ra aidetik iristerakoan, arrituta uzten digun lenengo gauza, giza semea da, berdin gizonak ala emakumeak. Alemanak bezin azkarrak, urrezko illekin agertzen dira, baiñan baita inglesak bezin apaiñak. Jende ixilla, geldirik egoten ez dakiña. Udarako jantziak, ebaki berrienetakoak zitzuten, neskak oso motzak, mutillak zuriz. Stokolmo'n jetxi nintzan eta esan dezaket, ludiko iri nagusietan ederrenetako bat dala. Nunai ura ta loretegiak arkitzen dira. Kaleak zabalak, etxeak aluminiozkoak, mailladiak mekanikoak ditu; il-erriak ain garbiak. Berebillak, naiz asko ibilli, ez dute ainbeste naigabetzen. Iri au ixilla ta garbia dugu. Zikiña arrotz dago emen. Dana dala, gizona errege, lasai bizitzen dakiña, lana egiñez.

Erri onen buru, errege bat agertzen da baiñan ez du agintzen, gizona dalako errege. Suezia'n demokrazi osoan bizi dira. Aspalditik, agintarintza sindikatoen eta langilleen esten ez dituztenak, irabazi aundikoak diranak. Adibidez, baso galantetik papera egiteko mamia ateratzen dute. Meatzetako burniakin mekanika onenetako tresnak egiten dituzte. Erriaren senak daramaki lanerako aberastasun au. Gizona nolakoa dan alakoa bere lana. Bere nortasun berezia lanaren bidez agertzen du. Beste errialde guztietatik ondo bereixten dirala da garbi ikusten dana. Erromaniko garaian, irudiak, amabirgiñak adibidez, oso luzeak egiten zituzten, eskulan zarrenetako irudiak ere luze xamarrak dira; arasak ere luzeak, Milles artelari ospetsuaren lanak ere luzeak; jakiña bertako gizonak luzeak izaki, baiñan oso erneak.

Naiz lan asko egin, pakean bizi nai dute, lasai. Gerrateak aspaldi baztertu zituzen. Izadiaren zaletasuna oso sakon sartua dute. Iri aundietan loretegi zabalak sortzen dituzte. Al duten guztietan basora dijoaz ta udaran «bela» ko ontzietan itxaso gaiñean dabiltz. Iri aun-



Aurren Jolas-tokia (Aida Argazkia)

kuetan dago. Erriak aukeratutako parlamentuak egiten ditu legeak eta Parlamentutik sortutako gobiernuak, bertako gizartearen etorkizuna antolatzen du. Bitartean, erregea bere lanetan dabil, gaurkoa etruskoen espezialista da, ta egurastera bere txakurra artuta, ateratzen da kalera bakarrik.

Andrak parte aundia artzen dute politikan. Parlamentuan diputadu asko emakumeak dira; Stokolmo'ko Erri Etxean, konzejalen artean lautik bat.

Agintarien elburua auxe da, ekonomi aldetik, etorkizuna indartu, gizonei aukera berdiña eman, aberastasunak berdindu, eziketaren mailla altxa. Lan oiek aurreratzeko, zergak altxatzen ditu estaduak. Adibidez, langille bateak bi milla korona, 25.000 pezeta irabazten ditu. Eundik ogeita amar, inpuestuak ordaintzeko bear ditu. Geiago irabazi ezkero, ia erdia eman bear du. Bide ontatik, estaduak lenagoko aundikiak arruiñatu ditu. Gobiernua sozialista da, dirua kapitalisten eskuetan dago, baiñan irabaziak Estaduak daramazki erritarren bizia sendotzeko.

Zergak ordaintzen ba'dituzte, eskubide berezien jabe dira. Ikastetxeak ordaindu bearrik ez, ikasteko tresnak ezta ere. Gaxoak laguntza aundiak eskuratzen dituzte ta gaxotegiak izan ditzeken ederrenetakoak. Guk ikusitakoak ba zituan 900 oe ta 1.300 laguntzaille. Adiñekoak, lana egiten ari zirala irabazten zutena, ura bera jasotzen dute. Danei ikasteko aukera berdiña ematen zaie. Orain langillei iriki nai dizkiete ikastetxe nagusiko ateak. Gerrate gordiñen bat sortzen ba'da ere, atomika indarraren aurka ikaragarrizko babes tokiak egiten ari dira. Guk ikusi genuen batean ta iri bertan dagona, an 30.000 biztanle sartzen dira; baita ere 4.000 berebil. 30 metro lodiak dituzte ormak. Orduan, ikusten degun bezela, inpuestuak zerbaiterako dira.

Suezia'n daukaten demokrazia ez da gaurkoa, oso zarra baizik, oso barrenean daramakitena. «VIKING» edo «Itxas lapur gorrien» garaian, VI gizalditik X'era, erri indartsu arek, gaurko Sueziatarren asaba zar aiek, danak bilduta itxas bazterrean konpontzen zituzten beren buruausteak.

Erri onek izan ditu bere indarkeri garaiak. Aurrenekoa aipatu degun garaiko «Vikingoena» 17'garren gizaldian Europa erdiraiño bazterrak astintzen ari ziran. Joan zan gizaldian berriz, jakintsu aundiak ta jolaslari ugari izan zituzten; gaur berriz zine, ekonomi ta jakintza gizonak. Bai ez dala gutxi, 7 milloiko errialde batentzat.

Joan zan gizaldian, asi ziran erriaren eziketa zabaltzen. Dana esaten duan berri bat emango dut; gaur, neguan, ez aurrak, aziak baizik, amarretik lau, gai berexiak ikastera dijoaz. Ortarako sortu ta ugaritu dituzte «Erri Unibersidadeak». Batzuek neurri oneko kulturaren billa dijoaz, besteak gai berexi batez jabetzera. Ikusten degun bezela ez daude lo.

Lanaren bidez sortu dute, gizarte berexi au. Ez dira gai danetatik egiten saiatzen, oso gauza berexiak baizik, beste errialdeak egidieko gizasemeak amets bat dabilki, jai egunetarako, basoan etxe bat erostea. Etxe barnean bi gauza sartu nai ditu; bakea ta izadia.

Erri ixil eta langille onek, zuzentasuna ta aukera berdiñak nai ditu gizon guztientzat. Oiexek dira bakearen oiñarriak. Ta orrexegatik daukate bakea. Erri onek bere sena, berriak eta zarrak bear bezela maniatzen agertzen du.

Norbaitek galdetuko ba'lidake; «Zer da zuretzat Suezia'ko gauzik ederrena? Nere erantzuna auxe izango litzake: «Erriko ondasunen maitasuna ta zaletasuna». Norberak bere aberastasunari begiratu bearrean, asko zaintzen dituzte erri osoarenak. Orrengatik dijoaz ain aurrera. Erria kementsu ta indartsu balin ba'da ezin degu aztu bere aurrerapen geienak, 25.000 gizon buru argiei zor dizkietela. Auek irikitzen diote erriari bide zabala, lasai ibilli dedin.

Eta etorkizuna nola ikusten dute? Drogak ez ote du errialde eder au ilko? Ez dut uste. Suezia'n gizon galduak beste errialde guztietan bezelaxe daude. Gaur arte ain urruti joan dan errialdeak, uste dut izango dula gogoa, bidea ta aukera, geiago aurreratzeko. Errialde bat ez dute drogatuak egiten, oso gizon jatorrak baizik. Dauzkan gizarte ta astapenekin, uste dut, Suezia'ko errialdea, bere 450.000 km.² lurrekin, itxas bazter, ugarte, baso galantak eta iri zoragarriekin, gu danontzat goi maillako erri bat izango dala, gizon berexi bat an bizidalako.

Nere ustez Suezia'ko gizonak eragozpen aundi bat dauka bere nortasuna ondatzeko, burua oso aurreratua. Orregatik da errialde bat antziña dijoana.

LATXAGA

Ikastolak, Gurasoak, Andereñoak...

eta II

Goazen andereñoen arazo muñeraño. Arazo onek, juizio gogorretara, egi garratzetara eramango nau agian. Leguntasunak, egia txikartu baño ez-du egiten. Eta ni, egi osoaren bideetan nabil.

«Prinzipio oiekin (Ikastol Elkartekoekin, alegia) bat al datoz edo oñarri barruan lan egiteko prest al daude irakasle guziak? Emen nire kezka». Au idatzi nuan asieran aitatutako lan aietako batean. Egunean ez nuke egingo olako galderarik. Ezetzkoa dakitelako. Baiñan, nundik sortzen da uko ori? «Libertatearen» izenetik; eta ez askatasunaren oiñetik. Gurasoak, idea errikoiak dituzte; eta, andereño ta mutil irakasle batzuek berriz, eurak jakingo duten atzerri iturrietakoak... Or dago, eta ez beste iñon, arazoaren giarra.

Egiten dituzten izukeri, eta esaten dituzten ele-utsak, mamia estaltzeko azala, egia biurdikatzeko kea baño ez dira. Baiñan keak erakusten du sua nun dagon ta, su barnean sartu bear dugu. Bestela, oien esanak siñisten ba'ditugu, sekulan-sekulako linboa ondo merezia daukagu.

Elkartea sortzerakoan, norbaitsun otseiñak saiatu ziran aientzat ateak zabal geldi zitezen. Elkarte «barrutik» nai zuten lan egin. Orduan etzuten ezbaitzen ikastolak gurasoenak, edo erriarenak ziren...

Alkarrizketan, ordea, apaizen eta erlijioarengatik, kristonak esaten zituen. Leen partea, «ofiziala» zen; bigarrena «konfiantzazkoa». Tokitara zijoan jaio gabeko Elkartea olako «elementuei» ateak irikita!

Gero, euskera bateratua ikurrin bezela artuta, «integrazio» arazoa axaleratu zuten. Or asi giñen xexenari adarrak ikusten. Naasketa bat sortu nai zuten euskalerri barruan. Iñork iñon da iñoiz ezertarako pentsatu ta aitatu etzuan razistar burruka piztu, zezakeanak, ikastolak ixteko arrazoia izan zezakean.

Urrengo, «zer» eta «nola» arazoei elduta, jostorratza baño motzagoko ariarekin nai zuten bien arteko eskontz-soiñekoa josi. Bi arazoak banatzea, «legekeri» utsa zeritzaien. «Eztabaida gori-gori batera iritxiaz», orduan bai, gurasoena izango litzake «zer» ori erabakitzeko eskubidea. Parregarriagorik!

«Ez aal da mila bider egokiago bai zer irakatsi eta bai nola, guraso ta andereñoak elkarrekin erabakitzea? Ara emen berriro xexenaren adarrak. Ondo baño obekiago dakite eurak, «nola» orretzaz, teknika aldekoa denez, gurasoak ez dutela iritzi ikasirik. Guziak irakasle ba' lira, tira! Baiñan nola eztabaidu eztakiena dakienarekin? «Nola», beti, andereñoak dakien eran izango da.

«Zer» erabakitzeko, zein arraio da iñor gurasosi berezko duten eskubide bat ezbaitzeko? zeren izenean? «Libertatearenean»? Barkatu, baño, guk ba dakizkigu askatasuna, eginbide ta eskubidearen esan naiak. Eta ez dogu pentsatu askatasunaren izenean besteri eskubideak ukatu ta eginbideak geitzerik. Ez degu ezta ere besteren eskubideak errespetatzeko «eztabaida gori-gori» batera iritxi bearrik izan. Lenengotik eman nai izan diogu bakoitzari berea. Ori bait-da egizko elkarrizketara iristeko ezagutzen dugun bide bakarra.

Geroago, «ikastolak erriarenak dira» esango dute. «Eta, erria zein da? «Langilleak» erantsiko dioe. Eta galdetzen dut: Ikastoletako aurren gurasoak zer dira, alperrak? Baiñan ba-dakigu oien esateak demagoji utsa baiñ ez direla.

«Nik ez dut siñismenik eu ikastoletako aurtxoei ez diet Jaungoikoaren izenik aitatuko», esango du andereño batek. Ondo dago, erantzungo diote. Zu pertsona askea zeran aldetik, eskubide osoa duzu nai duzun eran pentsatzeko. Baiñan, emen, kristau-ezikera ematea erabakia dago, orregaitik zuri ez dagokizu emengo andereño izatea.

«Ni ez nago kristau-ezikera ori emateko prestatua». Soin zaitez orretarako prestatzen ta, ikasten duzunean, atoz gugana ta izango duzu zer egin.

Or guztian dago nire «Jokaerako tankerak» lantxoan aitatzen nuan «gogoeta osotiarra».

Baiñan zer gertatzen da? Andereño aukera baño ikastola geiago dagola, ta, orduan, datorrena datorren bezela artzen dela, aurtxoen eziketak merezi duen bertzitasunik egin gabe.

Andereño artean ba-daude baita ere, ikastoletako espiriturik sentitzen ez duten irakasle «profesionalak». Olakoei ez die ajolik ez euskera, ez giro ta ez arnas. Eskola Nacionalen eran erakutsi, lan saria jaso ta kitto!

Ikastolen zerua, odea, ez dago askok esaten duten bezin illun. Nire salaketa-lañuak, eguzki noizka estaltzen duten odei itsu batzuek baño ez dira. Jaunari esker, andereño geienak euren gogoi-mallako eginkizunaz jabetzen takoak dira. Auek ba dakite gaurko aurtxoekin biarko euskaldun jatorrak «nola» egin. Eta oietan dago etorkizunerako itxaropen osoa.

ZALOÑA

ZORIONDUN BARRI BAT

A. MAXIMILIANUS KOLBE

Igaro dan Urrillean VI'gn Paul'ek, A. Kolbe zoriondunen izendegian ipiñi eban. Eleizkizunera 25.000 lagun eldu ziran, euron artean Polonia'ko 5.000. An zan baita, eskerrak berari ondiño bizirik dan 70 urtedun Franciszek Gajownieczek, bere eskerona agertzeko 1941'gna eskerotik A. Kolbe'ri otoi egiten dautsona.


Aita Prantzizkotar ospetsu oneri «Auschwitz'eko martiti» deritxoe. Auschwitz Hitler'ek iragitako zelai-espetxe bildurgarrienetariko bat izan zan. Bertan 4 milloitik gora yudarretan bakarrik erail zituen-eta.

Ara A. Kolbe'ren bizitzaren barri batzuk: 1894'gnean yayo zan. Prantzisko sartu ta Pilosopi ta teoloji irakasletzak Erroma'n irabazi ta 1918'gn Meza emon eban. Andra Maria ganako zaletasun sutsuak bultzatuta, Ryecerz Niepokalanej **(Sorkunde Garbiaren Zalduna) eritxon aldizkaria sortu eban, 1938'nean milloi bat iyeki illoro zabaltzen zituana.**

1927'gnean, Niepokalanow **(Sorkunde Garbiaren Uria) irasi eban. Uri onetan 700 langille irarkola lanetan eukitea lortu eban. 1930'ean beste ainbeste egiteko asmoa Yapon'era yoan zan. Polonia'ra biurtuta, bere zabalkunde lanean ziarduala 1939'ean Gestapo'koak espetxeratu eben eta iru illebete barru azkatu. 1941'gnean barriro espetxeratu ta gero Auschwitz era eroan eben. An egoala, espetxetu batek iges egin ebalako, bertako agintari «Fritch ankerrak» amar laguneri bizi kentzea erabagi eban, euren artean egoan gaur A. Kolbe'ri eskerrak bizirik dagoan Franciszek Gajowniczek. Eriotzarako deituak, auxe esan eban: «Ai nire emazte ta seme gaxoak!» Urrean egoan A. Kolbe'k ori entzun ebanean, oinkada bat aurreratu zan. Fritch'ek arrituta itandu eutson: «Nor zara zu?» A. Kolbe'k: «Ni polakar abade katoliko bat naz. Ia zartuez noa. Eta atzamarragaz Franciszek izentauta «orrek emazte ta semeak daukoz eta orren lekua bete gura neuke».**

Beste barik artu eben eta amalau egunean gosez eukita berenozko inyeziño bategaz il eben eta gorpua erre. Gaur egunean ainbeste norberekerin artean onego yarraibideak pozgarri dira, Gizonaren Yaunaren laguntzaz gorengo maillan igon leikela adirazten dabelako.

GAMA



Stokolm iria (Aida Argazkia)

AGVR

II URTEA
26 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - LOTAZILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

GABON!

Ta bakea gogo oneko gizasemeei!

Bakea bearrezkoa dogu, ez da baiña zorion osoa, ezta azken-itza bere. Bakea, danontzat bardintasunean, zuzentasunean, giro bardiñean bakoitza ta denak diranean, dator.

Bitartean, bakea, ez da bakea. Okerkeriak iraun dagian lokarri bat besterik ez: Nik neurea lortu dot, orain, danok geldirik, ez dagiala iñork burrukarik egin, bakea bear dogu! edo,

Ezer ez neukan, lapurretan, guzurretan, erailketan eta burruka-bizitza baten ondoren aberastu naiz, orain diñotzuet, orrelakorik egitea gaiztakeria da, nik txiroei laguntzen dautset, nere gogo-arra lotaratuko ba'dot, ta bakean bizi. Gaur Don Jauntxu naiz eta kito! edo,

Bizi osoan lan egin ondoren, zartzarako ondo irabazitako sari txiki bat daukot, bakean iraun dagidun, apurtxo ori galdu ez dagidan, bestela, zer? edo,

Ez da bakerik izango nik neurea egin arte, gero danok geldi, nik eta nereak erabilliko dogu erriaren ondasuna zuen danon oberako. Etorri orain burrukara, gero gure esanera zuzen, ixillik, edo makillea gaiñetik. Guk lortuko dautzugun bakea, guerea danez, betikoa!

Ta zenbat guzur. Bakea ez da alperren oberako asmatua, ez da iñoiz asmatua izan; ori Jaungoiko'aren beraren itza da, ta erreza gizonak ulertzeko. Guk baiña era askotako itzulpenak egin dautsaguz, eta bakoitzak bere itzulpen ondatua darabil... besteak atzipetzeko asmoan, baiña.

BAKEA izango ba'dogu, bardintasunetik, zuzentasunetik, egitik eta maitasunetik, besteak bere jan dagien lan egitetik, lan eta izerdiak neuretzako lain eta besteei laguntzeko geiagotik etorri bear, bestela dana da guzurra, alperkeria estaltzeko itz-jarioa, iñoren izerditik bizi izateko leloa.

Bakea egitik, eskeintzatik, giza-zaletasunetik, Goikoaren bidetik... eta denak langille izatetik bakarrik etorriko da.

Ala ta bere, Bakea, sari ederra izanez, nekez lortu daike ta gizonon almenarentzat zaillenetakoa. Orregaitik, orren alde benetan jokatzen dabenak, gizonak **dira. Ara gure Gotzon zanak 1968'gngo Gabonetan esaten euskuna:**

«Belen'go Barri-Ona dakargu poz-pozik.
Barri-Ona. Zoriona!!
Zoriona negarrez.
Negarrez, illun, itun,
argi bearrez.
'Goitik erantzunik ez' Guzurra.
Erantzuna, oiartzuna,
Barri-Ona.

* * *

Zazpiak bat. Negarrez,
ito bearrez
baiña il gura ez.
'Zugaz bizi nai dau'
Josutxo maite, erri oro zure,
adoretu, berotu, indartu, biztu,
egizu gure.


* * *

'Baiñan erri bat iltzen
ez duk ain errez'.
'Bertze erriak eraiki dira odolez...'
Belen'go Barri-Onak, olakorik ez».

* * *

Goitik ba-dogu erantzuna, ta bidera-ko argia, gu geu gorrak eta itsuak, alperrak eta norberekoiak, ta... Bakea igesi.

AGVR



OROI-APURRAK

«Au edertasuna!» *Ez ote zazkizu itz oriek bururako, irakurle, argazki ori begiratzean? «Aberri» zanari idaztortz apaiña eskeintzeko bilduak gaituzu euskal idazleak or, Elgoibar'en.*

«Lizardi» ez dezu ageri argazkian... «Arantxa» gure artean oraindik... 1933'garrenaren erdiz gora edo 1934'garrenean bear beraz.

Apaizik, alerik ere ez. Igande edo jai-eguna izaki. Bestela, beste ainbeste lagun bai argazkian. Garai aretan apaizak ez bai zitzazkizuen igande ta jai egunetan erritik irteten. Euskal idasle-batzar eraenak, antolaketak, istillu auxe ordun: Apaizak igande ta jai-egunez lotuak; gu, ez-apaizok, astegunez.

«Au edertasuna!» *Tolosa'ko Andre Mari elizan entzun nizkizuen itz oriek, orduko Apaizburu zanaren aotik irtenak. Meza Nagusi'ko itzaldi asieran esan zizkigun. Izan ere, ikusgarri egun aretan Tolosa'ko eliza nagusia. Askunde jaiak genitun eta Meza Nagusi'an, argazki orretan bezelaxe, elizak koka aal tolosar eta lagun.*

Argazki orretan bezela, ez ote zenuten ordun ere elkarrekin «Irubelarra»?

«Arantxa» erdian, alai ageri ez ba-da, ba, irukoa, beko lerroan! Ondo oroitzen natzaizue, «Aberri» atzean par eragille. Aren patxada, aren irri-par gozoa, aren txantxetako gogoa ezagutu zenutenok, arrituko zerate: Ua, «Aberri», begiak malkoz bete-bete ikusi ta nora begira asma eziñik, larri ikusi genun gure burua bein batean.

Eibar'en zan, gure jaialdi alai, garbi, jator aietako batean. Mai txiki baten inguruan, lau edo bost lagun.

«Arantxa»ren berririk? *galde egin zigun «Aberri»k. Ba-zekian, ba, berak, «Orixe»k Denuxi arrebarri bezela, guk ere «Arantxa»ri:*

«Jainkoak barreia gindunan
bere esku legun begidunez».

«Arantxa» monja joan zitzaigula, alegia. Beste «Arantxa» baten oroitzapenak erasana, agertu zitzaigun ordun «Aberri». Ene, gizon-arpegi zabal, jator aretan beera, malko lodiak! Ikus, ikus argazkian, arpegiaz diodana egia danentz.

* * *

Joan dan asteazkenean, azillak 3, «Arantxa»ren illetak Tolosa'ko eliza nagusian.

«Ta udazken atsarreko goiz batean
esnatu nadi Yainkozko Betean!»

Pilipinetan eta, Txina'n eta, mixiolari ibilli ondoren, Erroma'n Zeru'ko Aita'k Goi-Aberrira deitu auen 1971'garreneko udazken astapen onetan, «Jose Mari'ren Arri'ko itz oriek, gogora iñondik ere iri, «Arantxa».

«Jose Mari'ren Arria», orixe zan zuentzat, aren landike miñentzat, Mutitegi'n «Lizardi»ri jaso zitzaion oroitarria.

Maite ez ba-unan, ba, toki ua! Araxe eraman unan, meza ondoren, komentuan sartzeko aurregunean, berria eorrek eman nai izan ienan bakanetako bat. Ta antxe, bata Arri'ko alkian, bestea arkaitz mutur baten gaiñean exeriak, biak urrunera so, Aralar aldera noski, antxe mintza intzakionan «etxe aldaketaz». Eorren itzak ditun.

* * *

Eriotz onen berri ematean, argazki ta guzi, idazki goragarria ekarri omendu «Diario Vasco»k. Argazkian bera bakarrik, MADRE INAZIA, noski. Nik, berriz «AGUR»en «Arantxa» bere giroan agertu nai. Obeto esateko «Arantxa»ren giroa. Aztuxe daukagun gure Pizkunde amesgarri aren orrialde bat edo beste oroitarazteko, edo ezagutarazteko, aukera galdu nai ez.

Orra, irakurle, orduko erri-idazleak batasun jatorrean bilduak, argazki orretan. «Aberri» bera, igeltsero zenuten. Esku-lanez irabazten zizuen ogibidea. Baietz bereizi, baietz ezagutu, iñork adierazi gabe, eseriak daudenen artean zein «Aberri». Onen eskubitara irugarrena, sendagille. Balmes'en «El Criterio» euskeraz jarri zigun Zinkunegi. Euskeraz, «Irizpidea».

Ainbeste mordoillokeri asmatzen ari zeratenok, orra eredu, Zinkunegi. Altube txorrotxak ere, «Irizpidea»'ko zatiak jarraibidetzat ematen dizkigu «erderismos»'etan.

Ikasia zenuten, Zinkunegi; sendagille Zarautz'en. Ikasia... Amaika aldiz erakutsi izan dizuegu euskaltzaleok, ikasien axolakabekeria dala ta, gure miña. Ikusten ari gerana ikusita... Sasi-ikasi geitxo ari dezue oraintxe gure baratzan, arro-arro. Ta miñez diot, ez natzaizue euskeranto asmatzaillekin mintzo.

—Zer bear da pilosopiaz, euskeraz idazteko, «Orixe»? *galde egin zioten bein praille gazte batzuk.*

—Pilosopia jakin. Pilosopia ta... euskera, *arek erantzun.*

Argazki ori begira, amaika gogapen bai burura: «Luzear», Markiegi, «Atarrene», «Mañari'ko» eta, eta.

Eten, eten egin nai digute ta ari dira, ari, eteten gure edesti-aria. «Historio Triste» onetaz... Beste baterako utzi bearko.

Bukatzeko «Lizardi»ren itz batzuek. Segura'ko itzaldi batean esan zizkizuen. Zenbaitek, argazki pean auetxek aski zirala uste izango. «Arantxa» gurutze batez erakutsi ta kito.

Beste bi izlari dituzue atzetik *(«Lizardi» ari zaizue)*. Bata andereñoa, bestea zalduna.

Lenengoari, txalo biziak yo zaizkazute, orain etorri zaizkigun laguntzaille polit maitagarrien izenean itz egingo dizutelako. Txalo yo zaiozute ere, gure aurren «andereño» gure aurrei goxo goxo euskera ta lenengo yakintza-gaiak erakusten dien irakasle atsegiña dan aldetik».

IRA'K

AUPA MUTILLAK!

Eleizaren kerizpean argitaratzen dan aldizkari bat irakurtzean, nere lagun asko sutu egin dira, ta ezaguntzen ez nauan batek baiño gaiagok galdetuko du: zer jazoten da Arenaza'gaz? Banan, banan, makillaka ez jakez ba asi batzuk azken aldiko zenbakietan?

Nere lagunak jaramonik ez egiteko eskatzen daustee, baiña ez naz errez ixiltzekoa. Makilleari, makilla bigaz erantzuten dautsat, al-detanean beintzat, nere irakurleei zor jaken lotsa ta jakin-erazi bearragaitik baiño ez ba'da be...

Ara: Orrillean, Mayatzean izango urte bi, Orril artako lenengoan (langilleen eguna aukeratu eben, langilleen itxuran agertzekoedo...) Eibar'ko toki baten «euren euskera batu» jayo barriari mun egiñaz, burrukan asteko bildu ziran. «Eibar'ko zina» ori izenpetu eben «batu» ori aurrera eroateko beartuaz, eta beste erabagi askoren artean, au be bai: «Iñor *batu* orren aurka idazten asiko ba'litz, idazle txotxoloren bat izan ezik (emen eurentzat txotxolotzat ebezan idazle jator batzuk aipatu zituen), Arenaza ta orren antzekoeri berealaxe erantzutera beartzea, naiz norbere izenez izenpetu, naiz izen ordez, naiz «makilaka». Zin ori beteten datoz ba, irakurle, nire kritikalariak. An bildu ziran askok, gaur aspertuta, «zin» a apurtu dabela esango neuke nik... belu, baiña garaiz.

Azkenengo makillatzaille au, linguistika jakintza ikasten diardun gazte bat da. Meritu aundia daukanik ez dautsat ukatuko. Erdeldun jaioa izanik, euskerea ikasten saiatzen dana, benetan goragarria da... baiña ez da bakarra. Orrenbesteko burrundara barik askok ikasi dabe gure izkuntzea, Etxebarria'tar Juan Anjel'ek euron artean, eta ez goaz lenagokorik aipatzen. Baiña ortik «linguista» maillara igoteko ez dauka zeregin makala! Pelai Orozko'ren «La Encrucijada» idaztiari akatz orixe topa neutsan: lendik puztuta egoanari, putz aundiagoa emoten etorrela... ta orixe bear zuen ba, orrek!

Baiña goazan arira, jaun orrek nire aurka, egi batzuekin nastean, guzur ta maltzurkeri ugari esaten ditu. Egia ni, Villasante ta Mitxelena'ri gogor egiten saiatzen naizela. Ta, zergaitik ez? Euren jakituria errespetatuz, eurak agertzen jataz gaurko euskera-giroaren erantzule. Beste jakintsu apal askorekin itz egin ondoren, ez nator euren jokabideagaz bat, ta kito!

Gero anonimoak aipatzen ditu: «Nik ez dakit aspaldian berak zabaldutako esamesaren barririk baiño». Sherlok Holmes dirudi... ba ete daki Lekuona'tar Manuel'en aurkakoa norek egin eban?

Piper-Ziri ta ni bat garala «usaindu» ondoren, andereiñoeri ez dakit «zelakoak» deitzen neutsezala diño. Piper-Ziri'k (ta ez nik) andereiñoen alde idatzi eban bere garaian. Len gitxi irabaziz, illeko eun laurleko alperrik kentze ori, mutil bat lan egin barik (eurentzat beintzat) mantenitze ori, eurak, andereiñoak, eta ez guk, salatu eben, aurrerantzerako «inpuesto» ori ukatuaz. Ala ez ete da egia askok emotea itzi dabenik? Arek, Piper-Ziri'k, ez eutsen andereiñoeri, gure idazle agoberoak asmatu dauanik deitu. Irakurri bestela orduko **Agur'a!**

Gero nik, Sartre'ri itz-aurrea neure erara itzuliaz, naikotu egin ei dot «linguistea»; guzurra eta zitalkeria zabaldu ei-ditut. Egia jakin nai dunak, eta euskaldunak jakin bearrekoa da, irakurri beikez «libru» orren itz-aurreko XXV eta XXVI orrialdeak. Gero bakoitzak erabakiko dau nor dan guzurti, ta zer ikastolarentzat kaltegarri. Baiña nere esan naiaren muiña atzekoz aurretu guran, lerro au kopiatzen du: «ez dala egia esan dogu, baiña guzur osoa bere ez, behar (emen h bat sartuta) ba'da Sartre'k diñoana» (sic).

Ez naiz ni bakarrik ikastolentzat kaltegarri dan jokabide orregaz kezkatua. «Principe de Viana'n, Satrustegi'k; Zeruko-Argia'n, editorial bat; GOIZ-ARGI'n be salatu dabe ondamendira bultzatze ori... baiña». «Eibar'en zin egindako» batzuentzat, erderazko «cabeza de turco» ori, neu naz... ta neri ardurarik ez. Naiago ta maiteago ditut ikastolak, idazle ta sasi-errizale orrein elburuak baiño. Argi dago?

Amaitzera noa, maltzurkerian maixu internazionalak euki arren, oraingoz beintzat orrein morroi bakarrik dan orreri, zeozer esanaz. Orain iru-lau urte aingerua irudian, iganderoko jaunartzaillea; orain, diñoenez, Jaungoiko-ukatzaillea biurtu ei da, ta ori eldu bakoa izatea be ba-liteke.

Eta Retana jaunagaitik diñoanari onela erantzungo dautsat. Gure zuzendariak, erdelduna izan arren ta euskerea ikasten ibilli, garaizko itzulpenak izaten ditu. Ondo ezagutzen ditu, baita, zuk eta zulakoak, len Euskaltzaindian eta orain edonun, egiten dautsezuezan aurkako «kanpainak». Baiña lau katu gorabera, geroago ta euskal kulturazko idazti geiago saltzen ditu; gure laguntzagaz zati on bat, jakiña! Beraz, AGUR'en zuzendaritza esku onetan dago.

Beste orrenbeste esan ete legike zuen aldizkariari buruz? Ikusten dogunez, Franziskotarren Irugarren Ordenakoak ez dabe arduradun izaten jarraitu nai... ez da arritzekoa!

Nor da orain aldizkari orren erantzule? Ez ete dago norbait euskaldunak nastatu ta erdibituaz «alperriko euskera» au galbidera bultzatzen? Bakoitzak aztertu bei bere burua.

AGUR'etik agur, Eibar'en zinatuok! Nere buru gogor onek makiña bat kaxkarreko artuak ditu... eta zuek gora-bera, ni lengoan, gizatasunezko erri-lagunen artean.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

IKASTOLAK DIRALA-TA II

Ikastolak dirala-ta aburu askotxu dira gure artean. Jose Lasa jaunak idazti argia zabaldu eban «Euskal-Erria ta Ikastola» izenpurupean. Nire eretxiz argi be argi jartzen dauz gurasoen eskubideak, baita Eliza edo Doibatzarenak, eta ume beraxen eskubideak be. Lasa jaunak bere eretxia sendotuten dau Batikano'ko II Baizar Nagosi ta Doipuru edo Aita Santuen irakaspenetatik, baita UNO'tik be.

Labayen'dar Andoni jaunak be GOIZ ARGI'an idazkun argia emon dausku «Izkuntza ta Errelijio» izenpuruaz. Bere aburuz gurasoak ez eskubidetuta bakarrik, beartuta dagoz uzkurtza edo errijioa euren seme-alabai irakasteko. Bide onexetaz ibilli gura naz neu be gaur. Nire eretxiz oinkada bat geyago emon bear dogu bide onetan, eta umetxoak eurak DEADARKA eskatuten daben eskubidea dala agertu nai dot.

Zelan, baiña, izkuntzarik ez dauken umetxoak, ezaguntzarik be ez dauken gizasemeak deadar ori egin? Ara emen: Nik ziur be ziur dakit umetxu orreik zoriontsuak izan gura dabela, lur oso ta izadi zabalean diran gauza guztiak be orixe nai dabe. Naia ez ba'da, sentzuna izango da; sentzuna ez ba'da, oldea izanda; oldea ezik, eskaria. Edozer gauzak bere izakerearen betetasuna, atsedena, zoriona eskatzen dau. Zoriontsu izan gura dau. Betea, biribildua, amaitua izannai. Ona izan nai. «Omne ens appetit bonum: ens et bonum convertuntur» esaten geban gure Ikastola Nagosietan.

Umetxoak, ba, zoriontsu izan nai. Atseden oso ta zoriona ez dagoz ludi onetan, baiña zoriontasun-bidea bai, emen da. Umeak jayo ta berialaxe bide orretan jarri nai ditugu ta jarri bear ditugu. Beraz umeak ugutzatu ta umeak, ikastoletan euren zorion-bideak lortzen jartzea zuzen be zuzen da. Ez eskubidea bakarrik, bearkuna be bai daukagu ori egiteko.

Gurasoai naiz Doibatz edo Eleizari, umeai ikastoletan zeruko-bidea irakasteko eskubidea ukatu gura dautsienak emoten dabezan zio beraxekaitik, guk esaten dogu gurasoak eta Doibatzak eskubide ta bearkun ori daukeela. Umeak eurak eskatzen dabelako, umeak gizasemeak lez ori eskatzen dabelako, umeak izadiko biztanle lez orixe nai dabelako. Gurasoak ez dira iñoren etxean sartzen edo sartzen ba' dira etxe-jabearen eskatuz zartzen dira. Zuzen dabiltz. Gizonak daukan azkatasunaren lagiz lan egiten dabe.

Eguzkia beraxe beste argi dagozan egiak dira oneik; baiña tamalez banaka batzuk ez dabez orrela ikusten eta euren ikusmen laburtxoan an goi-goietako argia ezin ikusi. Egin dagiguzan alegiñak alkar lagunduz argia ikusi ta egirantz guztiok batean egin dagigun. Alkar ulertzen alegiñak egiñez goazen guztiok aurrera. Euskeraren onerako ta euskeldunen zorionerako. Aurrera beti.

URRUTIA'TAR
GOTZON M. B. S.

POZAK ETA KEZKAK

Orrenbeste kezka ta pozaldi, asarre ta naigabe sortzen daben ziri onek ez dauka zertan piperrezkoa beti izan bearrik. Zeozer goragarria ikusten ba'dogu, gozarozkoa erabilliko dogu, ta Anaitasuna aldizkarian azken zenbakiko zuzendaritzaren oarrak poztu gaitu. Danok euskerearen alde gabiltzalako ustean, Erria, erriaren euskerea aintzat artuko dala jakiteak; Bizkai'an eta Gipuzko'an ulertzekoa eskatzen danean, derrigor poztutzen gara. Auxe izan da beti gure jomugea, erria bere izkuntzan, bere euskalkian alfabetatzea, gure euskereak bizirik iraungo ba'dau beintzat. Beste era batera jarraitzea amesetan ibiltea da gure ustez, euskera biziaren gaixoa sendatu bearrean, geitzea. Beraz, h'gaz naiz h barik, euskaldunak alfabetatzen ba'doguz, zoriontsuak gu!

* * *

Baiña barriro be atzeraka ta aurreraka asi bearko ete dogu? Euskerea ez da «yenka dantzea» bezela atzera ta aurrera egitekoa. Euskerea erriarena da ta erria, euskal erria da bere jaun ta jaube. Beraz, utikan «laboratorioetan» naste-borrosrastean dabiltzan sasi-jakintsuak! Euskerea ta erria; erria ta euskerea.

* * *

Erria ta euskerea aipatu doguz. Zeruko-Argia'n «Basarri» ta «Amatiño»ren arteko eztabaidea arduraz irakurri dogu. Bion arrazoiak irakurri ondoren ni beintzat Basarri'kin nago.

Zergaitik? Amatiño'k bizkaierea aipatzen du bere aldeko arrazoiak aurrera ateratzeko ta idazle zarren esaerekin gogortu nai ditu bere teori-oiñarriak. Ez goaz eztabaida orretan sartzera, baiña bizkaitar eskualde guztietako erriak nola itz egiten daben, gaur beintzat, esango dogu bai.

Adi bidez, ondarrutarrak, «Ondarru'tik nator» ta ez Ondarru-a-tik, esango dautsue. Mañari'koak (Durango aldean, baita Eibar'en be) «Mañari'tik gora San Antoniora goaz» ta ez Mañaria'tik gora... «Mañariko» izenpetzen eban idazle jator eta errizalea be ezagutu genduan.

Eibar'en bertan: Mallabi'tik ta ez Mallabixatik; Xautxi'ttik, Matxari'ttik, Kortabarri'ttik, Pagei'ttik eta ez a+tik. Mallabi'ko Txikixak gerrixan jaukak indarra.

Aulestiarrak, «Allustitik»; Peltziarrak, edo ingurukoak —gaur zoritxarrez Plentzi'n euskera gitxi egiten da— Plentzi'tik; Mungiarrak, «Mungi'tik nator»; Arratiarrak, «Arrati'tik» eta abar...

Bizkai aldean Donostia'tik (baita San Sebastian'etik be) edo Getaria'tik esatea, izen orren barri belarritik izan bearrean, begietatik, irakurtzetik (erderaz) ez ete datorkioe? Gure ustez bai, eta erriarena dana, bakoitzarena bere inguruan, itzi egiten dogu urriñekoetan. Erria da beti maixu ta ez erderaz ezitako idazlerik!

* * *

Aspaldi ez dala, umetxoentzat egindako idaztitxo baten beste «batusi» naskagarri batzuen artean «giltza bat» be irakurri dogu. Egilleak bere errazoiak izango ditu, baiña nun entzun ete dau —Bizkai'an eta Gipuzko'an ez beintzat— euskaldun jator baten aotik «giltza bat», «sagarra bat» edo beste olako euskera gaiztorik? Erdal kutsuzko «arkaismo» guztiak barriztatzen asi jakuz... Erria ta erriaren jakituria azturik. Erritik urrun dabiltza, urrun benetan ta ori alperriko lana da. Orregaitik atzera egin bear, baiña kontuz erriagaz! Euskerea ez da len esan dogun lez «yenka dantzea», sendotu ta zabaldu bear dogun gure nortasunaren giltza baiño!

* * *

Ta ez aztu «Konsignen» gorakadak: Lenengo, euskalzale zarrak baltzitu. Bigarren, siñismena ito ta eleizetatik atera. Irugarren, euskereak ekarran batasunerako joerea ta egindako aurrerakadea eten. Laugarren, euskal-jai errikoietan gogorkeria sartu ta debekatzeko bidean jarri. Bostgarren, ikastoletan aurreri txakurkeriak irakatsi bear dirala ta andereiñoak nastatu, baita gurasoak be izutu. Seigarren, osorik geratzen jakun euskogiro garbiko mendizaletasuna naspildu, Larraitz'en eta aurrerago Izazkun'eko akelarre barrien bidez. Apaiz-antzeko txerrenkumeak goraldua. Goizaldean logurak artuta ez eieben ezer txarrik ikusi, bitartean txakurrak kalean lez, ta biraoka «Jaungoiko'rik ba'da, datorrela!»

Ta, zu, aozpolo ori lo...

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

SAGARTZATZU'TAR KAULDI

«Satarka» il da, soiñez. Baiña Satarka ez da soin utsa izan. Satarka'k bere gogoa be abestu eban eta emen geratu jaku gure artean. Bere gogo on ori, bitartean, or joan jaku gorantz, zuzen: «Gogoa anitz maitatu... Aingeru biurtu. Ta kanta-kantari, zeruan Zu aintzatu».

Ondarrabi'n, 1895'gngo Urrillaren 30'ean jaio zan, ta erri txukun orretan igaro al-izan dau bere bizitza langille ta olerkaria.

Oso-osoan izan da Satarka olerkari, ta orretxegaitik, olerkari benetakoak, olerkia muiñean daroenak ulertu al izan dabe. Ez, ez da izan bere lana neke barik, neurtu gabe sortua, edo olerki sen eta itxura bako poetentzat ulert-erreza. Ez da ba usaiña, gozo edo garratz, zurretan usaipenik ez dabenak oartzekoa, ezta be OLERKIA asta-belarriekin entzutekoa.

Satarka'k gaiñera euskera ekian, berezko euskera bakarra; gizaldiak zear eldu jakunean ari zan, ez eban izkuntza barri-barregarririk asmatzen ibilli bearrik izan.

Jaungoiko zalea; seme on bati dagokionez etxekoak maite ebazan lenengo, bereak ziran-eta; erritarrak urrengo, ta euskaldun guztiak anaiarte oso bat lez. Bere biotz zabalean, gizaseme guztientzako maitasunak besterik ez eban leku, bere Jauna'gananko eta Aberria'renganako maitasunaren maitasunez. Ta kezkaz beteriko Aberri-giro onetan Jauna'gana joan jaku bere otoitz arekin: «Zu iltzen ba'zera... agur, betiko, eusko neskatxen samurtasuna. Biotza dute anitz galduko, eta baztertu apaltasuna... Agur, egizko maitetasuna!»

UBITZA

ESAKUNAK

Esaera edo esakunak gaur-egun ia ez dira aintzakotzat be artzen. Askorentzat, erriak sortu dabezatsotitz, iñoiz supita, baita Bizkai'an beintzat, esaera ta esakunez ezaguitzen doguzanak, eta, or-emen, erriaren agotik atarata gaurdaiño bizirik dirauen atsotitzok, askorentzat tentelkeri utsa dira; beste batzuentza iolasbide edo barregarrikeri ganorabakoak ta, geinbat, burutapen iakingai merkeak.

Garrantzirik ez emote ori, irizpide itsu zentzuga ori, zergaitik ete? Erriak sortu dabezalako ala eskolabako erria izan dalako esakun eder, itz-molde argitsu orren eraitzale? Erriak asmatu, ta basetxe ta baserrietako etxe apal, sutondo txiroetatik gureganatu dira, ta or daukaguz zorionez gure euskererearen irauntza betikotasunean, eder baiño ederrago, berarizko lorakuntza betean, gizaldirik-gizaldira, erriak bere ikuste, bere nekeizerdien, bere oarmen aberatsez iragi ta burututako iakituria. Or daukaguz esakun txorta ederrak idaztietan ta beste ainbeste or dabiltza bizi ta gartsu, erriaren ago ta eskuarte aberatsean.

Zergaitik ez dira aintzat artzen? Oraintsu dala, lagun batek onela erantzun eustan, norbait zelan arkitzen zan itandu neuntsonean: «A, bai! Arek, lengo lepotik burua».

Esakunak mueta askotarikoak dira, adibidez: eguratsezkoak, sukaldeetakoak, urietakoak, zarozkoak, gizonen azkegizkoak, langintzazkoak ta abar; baita Iainkoari ta txerrenari dagozkionak be, ugari dira.

Esakunak esperientzi aundi baten seme egitazkoak dira geienak, ta besteak, asmamen oartsu baten sorkari iakingarriak. Ona emen: «Ez daiteke izan Iainkoaren eta deabruaren». «Iainkoa bat eta, bera naikoan. «Betikoa, Iainkoa». «Gizonak ekin eta Iainkoak egin». Etxe-barru bizitza ta abar adierazteko oso egokiak doguz: «Laratzak daki etxeko barri». «Su bako etxea gorputz odol gabea». «Atean uso, etxean otso, alako bizikera gaizto». «Etxe utsa asarre utsa». «Etxeko sua etxeko autsaz estali bear da». Ibiltari, gabean; logure, goizean». «Senarra txingarra ta emaztea ezpala... etxean beti sua biztua». «Umearen zentzuna etxean entzuna». Edo beste modu batera: «Etxean ikusia umeak ikasia». Zer gauza zentzungarriagorik? Goazen orain itxas-basterrez ta begira zer dantzugun: «Sareak urrago arraiak estuago». «Ur aundietan arrai aundiak». «Itxasoak erreka, iturriak eta ibaiak oi ditu iruntsi». Ta, zenbatzu ta zenbatzu onelako esakera bikain!

Io daigun beste alde batera ta ikusi indarkeria, maltzurkeria, lotsarik-eza zein ederto azaldu ta argazkituak dagozan: «Lotsagabeak erria bere». «Zenbat eta lurra bigunago, arra barrurago». «Lur bigunean zulo aundia». «Azeri zarrari illea ioan baiña antza ez». «Astoak iolas bat ta bera ostikadea». «Aberatsa inpernuko laratza».

Esakunak beren muin ta gorputza dabe, beren espiritu ta arima; aldiberako ikuste ta ikaste, erriak oiñarritu ta berengandu dabezan esakera sakonak, erakutsi ederrena damoskue gai apal ta eredugarrietan... Gozen bai aurrera ta aztertu daigun gure euskera baztertuaren altxor, bitxitasunak, bioztasun zabalenaz geuganduz.

«Baleki gazteak, baleza zarrak». «Bururik ez ta txapela nai». «Upel txarretik ardo onik gutxi». «Belitzko errotak urunik ez». «Baleko ta Balitz alkarren atzean dabiltz». «Norberak lana ta besteak iana». «Euliak eztira ta gizonak dirura». «Laster-lana, alper lana». «Aizea buruan ta ibilli munduan». Ta, ain gurea dan onako au: «Bete-betean Peru atean». Ta, beste ain bereizgarri dan: «Ur beroz errea otzaren bildur». Ez alda egia au? Onen antzera urrengoa: «Bi etxetako txakurra goseak ian». Zentzunez iokatzen dau erriak ta zentzun ori, amaika bider azalizen dausku bai bere esaeretan; ona emen geiago: «Oba da on gitxi ta izan kito, eta ez on asko zorrez ito». «Nekatzen da emaillea baiña ez artzaillea». «Txiroak dirudi txausti, guztiok arrika beti». «Mando merkea nagusiaren nekea». «Arrautza batekin ezin opil aundirik egin». «Maria nolako, odolkiak alako». Ta, amaitzeko, ona emen ene ama zanaren agotik entzun ta ikasi, zerbait eskatzen neutsonean: «Bai, seme: Ukalondoa urrian daukat euki baiña ezin munik emon».

Esakunetan dakusgu erriaren zentzun ta izaera, erriaren iakite, pentsaera; erriak baieztu ta ezeztatuena ta aintziña batetik gaur-arte, bizi-bizi dirauen altxorraren bitxitasun ederra. Beraz goazen erriarengana ta entzun daiogun arretaz, ta zalantzik ez izan, beti, or-emen zerbait ongarri eder aurkituko dogu.

MUNIATEGI'TAR SABIN



AZKATASUNA MAITE DEGU

Izaki guztiek beren zer-egiña dute mundu onetan. Beekoek eta goikoek, txikiek eta aundiek... Baiña, bereziki, izaki bizidunek. Gizonaren egitean, Jaunak esan: «Egin dezagun gizona, Gure antz eta iduriko». Ez da beraz gizona, beste izakien antzera egiña, Jainkoak bere antz eta idurira baizik. Baiña, nolaz azaltzen du gizonak bere izakera? Zorion irrikan ibilki, ala... azkatasuna lortu ametsez, indar guztiak emanaz?

Alabaiña, gizona gizon da, nai ta ez. Goitik datorkigu izatea; ta jaio geran une berean, ba-gera. Gizonak azkatasunari ezezkoa egiñez, zoriona onartzen ba'du, orduan bere izateari uko egingo dio, onekin, gizonak bere burua ukatzen du-ta, bere burua ezeztu. Askoren iritziz, bi jokabideak alkar litezke; ez omen daukate alkarren aurka zer jokaturik. Baiña, argi ta garbi, istoriak esan eta erakutsi digu, azkatasunaren atzetik ibilli dan gizonak atsekabe ta samintasunaren paltarik ez duala izan.

Gandhi jaio zala eun urte beteak dira. Gogorkeriaren etsaia izanagatik ere, munduko arazotzaz kezkatzen zan gizon zintzo ta jatorra zan. Baiki. Abertzale leial eta argia, zuan eta zezakeana, aberriaren alde emana, ta zuzentasunaren morroi soil. Bere aintza ta arrakasta askoren artean, Jesus Jainkoa ezagutzea, ez zan txikienetako bat, berak aitortzen duenez. Jesus'en erakutsiak ulertu ta sumatu zituan. Munduaren begirunea ongi irabazirik, Mahatma izen goitia jarri zioten. Alegia, gure izkuntzan, «anima aundiko».

Gandhi'ren elburua, ez zan zoriona bereganantzea, azkatasuna baizik! Bere aberria maite zuan. Lagun urkoa maite zuan, ta alako gizonak, bere buruari baiño geiago begiratzen dio lagun urkoari. Zintzoak, bere urkoaren ona nai du; ta ez du ordaiñez artu lezaken saririk billakatzen... Goethe'k berak esan: «Nik zu maitatzeak, ez bekizu ajolarik».

Marx'entzako, erlijioa, erriaren opioa da, erlijioaren eta marxismoaren filosofia, itz auetan arilka litezkenez gero; eliz guztiek, erlijio-erakunde guztiek, langillesail zapalduak eta burgeskeriak erlijioaregaz babestuz langilleak «esplotatu» ta auei odola ateratzen diela. Eta, zera dio; Erlijioa superestrukturako zati bat da, ta onen egitea, ekonomi-sailla indartuki, gizona zapaldu. Erlijioa, langillesailla zapaltzeko asmatutako tresna bat besterik ez da, dio. Munduko burgesia ta inperialisten eskuetan, il-ondorengo sariak eskeñiz, mundu onetan demokrazia ta sozialismoa zapaltzeko asmatutako tresna bat, besterik ez... etabar.

Gaurkoz, gai au nai nuke azter. Ez Marx'i aurka egitearren, denon iritziak alkartu ta gizarte jatorrago bat egitearren baizik. Gizonak, soin utsarena bakarrik ez baiña, espirituaren bizitza ere ba-du. Pentsatzen degunotan, espiritua, antxen izan: eta erlijioa, errikoia da. Bere bizitza, aalmenaregaz, munduaren arrazoia agertzen du. Orregaitik, erlijioari burruka egitea, gizaki ta mundu guztia burrukatzea da. Marx'en pentsakera osoa onartzea, morrontza onartzea; ta morrontza onek eskeintzen duen zoriona, morrontza ber-bera dezute. Osokeri onek, zuzengabekeriak ez ditu zuzenduko: ta gaiñera, iritzi onek askotan, gizonak gezurrezko bizitzara eraman lezazke. Iritzi onek, maiz gizonak dituan gauzik berezienak aaztutzen bait ditu.

Txina'k, 700 milloi bizi-lagunetik gora ditu; ta bere lurraren zabalera, 9,5 milloi kilometro bikotx, edo geiago. Eta beren jabetasuna sortaldean zabaldu bearrez, berrogeita amar errialde zapaldu dituzte. Barmeko, Mongolia, Xinkian-Uigur, Kwangeri, Tsxuana, Ningsia, Hui, Tibet, etab... Errialde oietan ez da azkatasunik.

Alemania'n 1919'gn urtean, Weimar'en izandako auteskundeetan, eraketa onek, 25,8 milloi autarki bildu zituan. Aurka zeudenak, 4.667 bakarrik inguratu zituzten. Reichstag'eri buruz, 1932'ngo Azillean, azken izandako auteskunde aietan, demokratak 13,4 milloi autarki bildu. Eta Hitler'ek berriz 21,4 milloi. Alemani'ko demokratek, amalau urtean atzerakada aundia egin zuten geroz. Hitler'ek, Alemani'ko sozialdemokratak itotzeko adiskiderik onenak, orduko marxista-leninistak izan zituan.

«Atzerritar teori oiek sartzen asi diranetik, beste bide labain bat erakusten dauskue». «Umeen eziketa, estadu edo gizartearen eskubide dala (gurasoak aazturik); ezkontza errez apurtu geinken kontratu bat besterik ez dala; sexual esperientziak, beste erri «aurreratuen» antzera eskondu aurretik egitea ondo dagola». «Gizona, artaldeko edozein ardi bezela, talde edo alderdi batek aukeratutako artzai bati jarraika bear duela, etab. Jakiña, talde orren eskuetan izango da diruaren jabetasuna ta ekonomiaren aurrera edo atzera bidea ere». «Ez, jaunak. Guk ezin dugu orrelakorik onartu: guk, euskaldunak, gure izakera eta gure nortasuna ditugu; ba-dakigu nortasun onek akats asko izango dituala, baiña nortasun ori galtzen ba'dugu, beste errien izakeraren itsas-urean urtuko gera; ta orduan ere, ditugun ainbat akatsez geralarik, «gureak egin du» esan eta kito egin bear!» AGUR aldizkaritik jasoak.

Sendia, leenengo erakunderik ajolatuena, lendabiziko osagarria degu. Jainkoari eskerrak, Euskalerrian oraindik ere, ba-degu erakunde ori: aurren leenengo eziketaren oiñarria, naiz eta erakunde onen aurkako indarrak nabarmenduxean izan, gure egunotan. Euskalerriak, oraindik, sendi-giro ta sendikutsua babesteko ainbat indar ba-du.

Mundu onetan burrukarako gertu bear gera, garaille irtetzea amets degunean. Burrukarik gabe, ezin saririk lor, ezin iritxi! Erri batek nola adierazten du bere bizia? Marx'en filosofis osorik artuaz? Gure arbasoenagandik artutako oro «razismoa» dala esanaz, apurtu ta suntsituaz?

Jakiña da alemanak, juduen abenda suntsitzeko asmoarekin erabilli zirala judutarrak erasotuaz. Orrela gorrotoak eta odol-ixurtzeak etzuten azkenik izan, senide, emakume, guraso zar eta aur errugabeak ia danak gas eta suaz kiskalduak izan ziran. Baiña ogetamar urte igaro dira ta... judutarren erria or dago zutik!

SAGARZAZU'TAR JOSEBA

OSTEAN ZER DABIL?

Gizonaren bizia gauza aundia da. Bizitza onek, beronek berez, itzaltasuna eskatzen dau. Lotsa-indar ori iñork ez dautso emon ta ez ezarri ta bakoitzak be ez dau norberarentzat egin. Izatetik dator. Geugan daukagu zerbait iñork ikutu bear ez dautsona ta au gure nortasuna da. Nortasun onek beregan ditu jakituria, maitasuna ta erantzupena. Iru oiñarri eder onekaz laguna gizon da, ta zenbat eta jakituri, maitasun eta erantzupen aundiagoak izan, gizona gizontsuago egingo da. Berezko jakituri ta maitasuna danaren antz geiago izango dau.

Emendik datorkio gizonari nortasun berezi ta arrigarria. Arreziz inguratutako etxe aundi bat bezela da gizonaren bizia. An, iñor ezin sartu daiteke. Baiña beste gauza ta jokabide guztietan lez, emen be, norbaitzuk banandu bearra dago. Ume txikiak, eurenez, ezin baliatu dira. Umetxoa sortukeran, jaubetasun aundi ta pozgarria artu dabe gurasoak. Ume orrengan beste iñork ez dauka jaubetasun ori gizonen artean. Aitaren ta amaren odola ta izatea daroaz ta bizitza emote orrek berarizko alkartasuna sortu dau guraso ta umeen artean. Urratu eziña. Orren izatea ta eziketea gurasoen babesean dago.

Aitaren izatea ta amaren bizia artu ditu aurrak. Aita ta ama ikusiko ditu ta eurei entzungo dautse. Orreik lez iñork ez dautse itzik egingo. Itz orreik maitasuna darioe. Semeak gurasoen maitasuna ta argia eskatzen ditu. Berezko legea da, guk asmatu giñakena baiño, amai barik, sakonagoa. Gurasoen eginbearra da ba, euren umeei egizkoa dan irakatsia emotea. Biotza ezi ta burua argitzen aleginduko dira gizonen egizko jakituri argiagaz. Umea ezin itzi daiteke bertan bera, ez-jakiñean. Bizitzako ardureak au eskatzen dau, ta baita umearen almenak be, al danik ezikuntza onena, garraziz, eskatzen dabe.

Guraso siñistedunak, eurenak dituen umeak, kristiñau siñismenaren erara eziko ditue. Euren eskubidea da. Ta norbere siñismenari, egiz, erantzun nai dautsonak, irakatsi ori kristiñau danez, bete egin bear dau.

Ta, orain, esanikoaren ondoren batzuk ikusiko doguz: Iñork ez dauka eskubiderik auzoko umeen gain, aren gurasoak emonda izan ezik. Gaur egunean ostera, besteei lotsea eskatzen jaken garai onetan, auzoko etxean sartu, ta an, norberak nai dabena egiteko griña gogorra dago. Zentzun gabekeri oni nork edo zerk damotso indarra?

Milla eratara, gizartetik Jainko izena kendu bear dala entzuten gagoz. Iñoren umeekin be puntu orretan, nasai-nasai, sartzen dira, aren ezikuntzaren eskubidea eurena ba'litz bezela.

Euskaldun kristau gurasoak, zuekin diardut berbetan. Begira nora bialtzen dozuezan zuen ume txiki orreik. Umeok zer entzuten daben arduratu zaiteze. Zuen gogoa ez da ume orreik siñiste barik aztea. Beste batzuk ostera, zuen onean eskua sartu, larregiz ta maltzurkeriz, eta Jaungoiko izena ta maitasuna kentzen bizkor dabiltzaz umeen barrutik.

Gurasoak, Jainko-ezeko asko dabil gure errietan. Zuzpertu albait ariñen ta zuen siñismen gisara azi ume maite orreik zeuen kristiñautasunaren erara.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

IRU IZKILLU INDARTSU

Egunotan esames asko dira, or ete emen, abadeak dirala ta ez dirala. Ezkondu egin bear leukeela; erritar bakarrik jantzi bear leukeela; beste erritarren antzeko lana egin bear leukeela ta abar. Irugarren arazo oneri bakarrik oratu dagiogun gaur.

Abadeak beste erritarren lan bardiña egin bear dabela? Lan ori egiten ez ba'dabe, zer egiñik ez daukela? Ta guztiak alperrak izango litzakezala? Ni ez nago lan orren aurka. Ta lan ori egiten ba'dabe, abadetzari dagokion neurrian eta bidalguntza edo apostolitza egitearren lan ori artzen ba'dau eleiz-gizonak, ondo baiño obeto deritzat. Baiña gauza bat esan bear dot, niretzat egi aundia ta esanbearrekoa dana: abadetzan bertan ba-dabela lan ugari, bai liturji-arazoetan, bai ikurton banaizean ta abar.

Baiña beste lan batzuen artean, batez ere, iru ezagutzen ditut abadearen ordu guztiak beteteko lain diranak, eta kristau bizia zabaldu, indartu ta berotzeko iru izkillu indartsu diranak: gaixoak ikusi; beartsu, txiro ta tamalduai laguntzea, ta azkenez, neskato ta mutikotxoai azikera ona emotea.

Iru zeregin orreik bete leikez abadearen egun eta ordu guztiak. Neure abadetzan, urte luzeetan, argi ta garbi ikusi dot len izendatuko iru lan orreik dirala abadeak egin leikezan gauzarik ederren ta onuragarrienak.

Gaixoak geienetan samiñez eta bakartasunean bizi dira. Sarritan eurak lagun zintzo ta on bezela ikustalduteak gaixoaren biotza baita bere etxeko guztien biotzak ere irabazi ta eskerronez biguntzen ditu. Parroki guztietan aurkituko ditugu ainbat beartsu baita onegaitik edo orregaitik saminduta bizi diranak ere. Beartsuai daukenen dirua zabaltzea ta eurak bear daben irabazteko bidean ipintea eginkizun gorengoa da. Baita samindurik bizi diranai adorea ta barruko indarra emotea ere abadearentzat zeregin onuratsuenetakoa dala ezin iñork ukatu. Eta zer esan landara bigun diran umeen, ez txar eta ez on dabezan buru utsak irakatsi onakaz betetzeari? Umeak maitasunagaz guk nai dogun bidera eroatea gauzarik errezena da. Abade langille ta maitaille batek umeen biotzetan erlijio, etika ta gizarte-arazoak ere ederto irantsiten ditu.

Gure Euskalerrian gaiñera eskoletan euskerarik irakasten ez danez, or ere ez ete dauka zeregin luze ta zabal bat? Umeok euskera ikasi dagien. Guzti au, bear diran gizon eta andrak ondo baiño obeto ezitzeko lan zoragarria, ederrena ta gizadiarentzat onurakorrena izango da; umeakin egiten dan, esan dogun lana. Bein eta askotan esango dot ostera be, ez nagola abade langilleen aurka. Baiña bai izango dirala abade batzuk, beintzat, abade askatuak edo euren urteakatik edo eleizak bear-bearrezkoa ditualako, ta zeregin ugari ta onena eurak izango dabela.

Errian zabal-zabal dabil abadeak ez dabela lanik egiten. Ezertarako ez diran alper batzuk dirala. Baiña buru pizka bat daben gizonak, gauzak ondo ausnartzen dakianak, garbi ikusiko dau abadeak euren abadetzaren barruan lan asko ta onenetarikoa dabela.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

ONA
ta
RAM
EZNEAK
ZUK
ONARTZEKOAK
DITUZU

KONTU KONTARI

Arrezkero, illabete batzuk joan dira. Ostikoketako jokaldi bat zala-ta, emetik Errusia'ra joan zan batek, izkirimiri auxe ekarri eustan:

—Errusian, katu guztiak garbitzen ebezala. Il egiten ebezala.

—Zer dala-ta?

—MAO! MAO! esaten baiño ez ekielako.

* * *

Zegama'ko Txilibristo ospetsu zan. Neuk esango dautsuet zergaitik: Azi ez zalako; txikirrikitxu lotu zalako; bost arra luze eskaz eukazalako.

«Kakanarru» gaitzizena esarri eutsen. Ortik igarri zeinkie, soiñez ezereza zala, buruz, erkiña ez zan arren, ikusiko dozuenez.

«I, kakanarru bat aiz», esaten eutsan aitak berak be, soldau morrontzarako bear dan neurrira eldu ez zalako.

Gizon txikia izan arren, eldu jakon Txilibristo'ri, erabagi andia artzeko ordua: Aitari jakinazo bear izaten jakon ordua. Aitarengana joanik, bai diñotso:

—Aita; ezkontzea erabagi dot.

—Ezkondu? i ezkondu? Kasta ederrak atarako dituk ik!

—Zuk aiñakoa atarako al dogu beintzat!

Eederra bota eutsan! Erantzunik bagekoa!

Erantzun orren burpilla ta grazia gazteleraz azaldu al leitekez? Ez dot uste erreza danik. Nolabait esan leiteke baiña... «Zuk añakoa atarako al dogu beintzat», esakera ori biribiltzeko, tornu berezia bearko da. Eizu, eizu saiotxu bat.

* * *

—Atzo, ikuspegi ederrak ikusi najoazan itxasaldean —esan eutson Koxe begibakarrak, Erramon adiskideari.

Onek, destaiñez erantzun euson:

—Zer ikusi bear dok-eta! Ezer ikusi ba'dok, erdizka ikusiko eban.

—Nik, ik baiño geiago ikusten joat! Ta nai ba'dok, bost lagunontzako aparia jokatuko dauat, nok geiago ikusi.

Jokatu ebezan apariok; eta Koxe begibakarrak esan eutson Erramon'i:

—Ik, niri, zenbat begi ikusten daustazak?

—Ja, ja! Bat.

—Ba... nik iri bi.

Ta jakiña. Begi-bakarrak, jokoa irabazi.

* * *

Gu, txikitxoak gintzazanean, aldrebeskeriren bat esan, naiz egiten genduanean, amak alan esaten euskun: «Juan adi Pikiñ'era!» Pekin'era joatea ta txakurraren salara botatzea, guretzat bardin zan. Pekin nun egoanik ez genkian.

Gaur, bai. ONU'ko Batzar Nagusian aulki bigun-egokiak jarri bai dautsoez. Nortasun andia artu dabe. Errusitarrak aspaldi eukezan, an, jesarleku apaiñak, «veto» ta guzti, eragozpide ta guzti.

Or daukozuez ba, Txina'ko «txakurrak» eta Errusi'ko «katuak», zaunkaz eta miauka. Geure aspaldiko Pekin aretara joango ete gara ba?

Mao-Mao!

Ala ta be, guk baiño lenago alkar artuko dabiela, nik uste.

Areik ez bai dira euskaldunak.

ABELETXE

ALKAR-IZKETAN - XIV

Gizarte-zuzentasuna dala-ta

—Lengo baten, ezagun batégaz yardun aldi bat euki ñoan eta, esaten yaustan gaurko naste ta gizarteko alkar aitu eziña gizartean zuzentasuna nagusi ez dalako dala. Zer deritxok, Anton.

—Zer eretxiko yautsat ba? Zuzentasuna bearreko dokala. Zuzentasun barik gizartea, bere tokian azurrak ez yaukoazan soiña legez miñez egongo litzakek-eta. Baiña nik ez yoat uste *naikoa* dokanik.

—Zergaitik ez?

—Ez dakit ba, tramankulu edo makiña bat ondo ibilteko txirrinka ta atal bakotxa bere tokian ipintea naikoa ez dala? Orio, legungarri edo labangarrien batégaz igortzi ezik neke ibili, ta berotu egingo litzakek.

—Alantxe dok izan be, baiña zer dok gizarteak bear yoan labangarri ori?

—Ez dok igarri? Gizartean ain urri ikusi, ta ain bearreko dokan *mailasuna.*

—Ez dok ba miñean gitxi erabilten doalako.

—Zuzentasunagaz be orixe gertatzen dok. Zenbat eta urriago ibilli, gauzea geyago aitatu. Bakotxak bereari bakarrik begiratu ezkero zuzentasunez yokatzea ez dok gauza erreza izan be.

—Ba, ori betiko gatxa dok. Lana eskintzen yoanak, albait lan-sari gitxien ordainduta, albait gauza geyen egitea gura izaten yok; langilleak ostera, albait lan gitxien eginda, lan-sari geyen irabaztea. Eta bitzuok zuzen yokatu ezik ez yagok gizartea zuzentzerik.

—Baiña ondo dakik atalik txarrena beartsu ta menpekoena izaten dokala. Zartana kirtetenetik nagusiek yaukiek-eta!

—Alantxe dok. Ondiño egun gitxi dok izparringi baten auxe irakurri ñoala: «Berengo mailako alogerekoak (peoyak) bear dira. Orduko 38 lauerleko emongo yakez, *amar edo amabi* orduan lan egitearren». Zuzentasuna ainbeste aitatzen dokan egunetan ori iragarri? Gizona gizon lez artzeko ordua dok eta «limoyen» antzera azkenengo tantakadararte estutzeko etxagok eskubiderik.

—Batzuk euren burua zuritzeko lenagoko aldean oingo langilleak ondo bizi dozakala esaten yabek, baiña orrek etxok esan gura gaurko ugazaba ta langilleen arteko artu-emonetan zuzentasuna nagusi doakanik. Eleiza'k aspaldi irakatsi yok, neurriz lan eginda gizonak bere sendiari eroso eutsiteko lain irabazi bear yoala.

—Alan da guzti be nik ezagutzen yoazat, sendia lotan itxita lanera yoan ta gau berandurarte etxeratzen ez diranak, aste guztian sendiagaz barrikeltadi bat egiteko asti barik.

—Ori zuzentasun eta gizonaren duintasunaren aurka yagoala argi yagok.


—Alantxe dok izan be, baiña ori buruan sartu yok bera ondo ibilli ezkero besteai «or kopon» egiten yakianari.

—Ba, olangoak *gizon* lez be ez yabek yokatsen. Gure asabak zeozegaitik esaten yoen: «Prakan, prakan ez dago gizona».


—Ordua aurrera yoak eta gaurko naikoa izangok.

—Agur ba, datorren asterarte.

URIGOITIA



Itxaro daben oparia bera eskeiñi egiezu



Zorion-agur onekin

Ez dozu zoragarria dala uste Gabonetako oparietan ziur jokatzea?

Gure edozein lantegitan uste dozun ordain zeatzakin (ta txanpon bat ez garestiago) Opari-Txartela erosi daikezu.

Eta jaso dauanak gure lantegiren baten diruz aldatuta nai dabena esori lei.

Eta jakiña, zure zorion-agurra gorde.

Opetsizu nai dozun ordaiña, txikiena be bai.

BANCO DE BILBAO (BB)

OPARI TXARTELA / BANCO DE BILBAO

Bada ez badako irribarreak... jator biurtzen dira.

KIRIO-ERIA

Gizonak egindako aurreratzeak apurka-apurka bere burua galduten dabe. Neurri bageko aurrerapenak euren ordain ondoren eta bigarren kontuak daukiez. Gizadiak, zabaldegi danetan asmatu, sortu ta iratzen dau, baiña lasaitasun ta lan barriak billatzeko lortzen diran aurrerapen orreik, jakintsuak deituten dautsen gizaldi onetako «geienen kirio-eriaren ordaiña zelan ugaritzen doan, ikusi da.

Geure artean dagon gatx, eri au, beste gaixotasun asko berez txarragoak mugatzen diran lez, azaldu ta mugatzea ezta erraza.

Kirio-eria zer da, ba?... Berba laburrez, azalda daikegu. Burutiko naspil berbera izan ez arren, gizadi uriratu guztian, askoz edo gitxika, min zabaldu bat da; lerro nastagarri agerkariz, biotzmin atsekabe irautiz elduten yakona.

Sarri askotan kirio-eri ori estutasun atsekabe egiten da, ta beragaz bizitzaren oztopo ta eragozpenak geiagotutakoan, neke, oiñaze, itun eta ustekaberiak eroan-eziñak egiten dira. Bide onetatik goiberaldira elduten dira, ta olan bakotxaren onerako gertasuna gitxitu, ta norbera naibako ta noriasa bage geratu. Jakiña, estutasun eta goiberaldi orrek eztira zorakeria, baiña zorakerira eroan legikie.

Eta zeintzuk dira gatx, eri onein sorburuak? Zenbatu dira batzuk: Gaurko egituren sortukizunak. Datozan eta doazan gizadiaren aurrez-aurrea. Inguruko ta gizonaren ezbardinkeria. Burubako urgintza. Ezagumenen eta ikastaroren arteko adi-eziña. Jakitunen ustez sorburu onekaitik gizadi geienak zailtasun, eta batzuetan, eziña dau berakin dakuntza bizi oni jarraitzeko. Konturatzen ba'gara, adibidez, milla urtetan gizadia, alde batetik besteri ibilteko; zaldiz, idiz, burdiz, bizi zala ulertuta dogu; baita orain eun urtetik ez asko geiago, lenga burdiak itxita, egazkiñez illargiraño be eldu gareala. Ainbeste urteren bitartean gizonak ez da izan lurretik gora, zalaparda bat egiteko almenik, ta orain edozein ludiko tokietara ordu gitxitan eldu gaitekez.

Kirio-eriaren beste sorburu bat egitura sortukizunak dira. Gauzak egitera, gertatzeko langillari aldi-denbora luzea bear dau, ta irabaziteko urrengitxi geratzen jakoz. Ogetabost urte gertu ta tiro izatera eltzeko ta ogei baiño ez gauzak ondo egiten jarduteko, tecniko-jakitunak diñoenez. Orremen, ba, goiberaldi, atsekabe ta kirio-eri itzel lan estuak.

Inguruko ta gizonaren arteko ezbardiñ au ta kirio-eriaren sorburu da. Mendietako txori-atxiak gitxi entzun, soloetako bedar ederrak eta lorpoko txipeleten egaz joan-etorriak gitxi ikusi, zergatz andien gerizpe gozo barik, gizonari bizitza itunduta suminduten yako. Gizonen ondoan dagozan gauza guzurrezkoak ezin alaitasun eta biztutasadorerik ekarri.

Azkenez, ez da ezelanbez gaurko urigintza bizitza alai bat eroateko ona. Etxe aundiak billatu ta moltzaturik, zarata iguingarriak nunnai; berbil, bultzi ta tximistaburdiak zarataka, ta basa guztietan ke baltz kaltegarriak atereaz, olako lantegiak eguratsa ta ibaietako urak loituten... orra or ikusketa gogogaldu ta itunak.

Jainko ta erlijio gaietatik urrundu ta, izadiak aldendurik, bere eskuak egiñiko gauzetan, gizadia itota lez edo kirio-eriz minduta, aulduta, makaldurik, egon bear dau.

LETONA

OLERKI SARIA

Urtero lez Larra'n, Onaindia Aitaren eragiñez, aurten be Olerkiaren egun polita izan dogu. Lenengo te bein, ez zan izan barbantzurik! Joan giñanok larregi giñala lekaidetxeko sukaldarientzat, goragoko trabenan izan gendun bazkaria, ta or, jakiña, ezin eskatu barbantzurik. Tamalez benetan.

Amaiketan Meza-nagusi ederra; Etxaniz jaunaren itzaldi Jaungoikotiar mamitsua. Aurretik, ixillian, goiz ibilli giñaneri, clausurako jan-tokian amarretakoa ardao zuri ta guzti, ta Olerti bildumako «Goiznabar» ale barriaren aurkeztea.

Amabietan, sari-banaketea: Zubikarai'tar Augustiñ'en «Egunkari Illunetik» bere guda ondorengo jazokunen olerki sorteak lenengo saria. Muniategi, Loidi ta Aurre-Apraiz'ek aipamen bereziak. Olerki oneik danok «Olerti»'n argitaratuko dirala-ta, irakurri ziranak besteak izan ziran; danak ezin-eta iru beintzat, ta irurok zein baiño zein obeak. Ortik igarri daikezu zelakoak izango diran lenengo orreik.

Bazkaritan, beti lez, alaitasuna, anaitasuna ta... batasuna; lengoa; ona. Alaitasuna, ortarako an genduzan Etxaniz eta Bordari, aulkiak be barrez jartzeko aiñakoak. Batasuna, Labaien eta Zeleta jaunak euskel arloan emon euskuezan jakingarri zeatzak. Anaitasuna, Peña, Solozabal, Artetxe, Arrasate'ko Kerexeta, Oñati'ko aita semeak eta, eta abarren alkar izketa ta alkar berotze. Danok izan eben zerbait azalgarri besteen atsegiñerako.

Lauretan, barriz batzarra, betiko itzaldia, edo obeto esateko, alkar izketa sutsua. Azkenez Zeleta'k lenengo eta Bordari'k urrengo euren itzaldi jatorrak, obe dogu baiña eureri itz egiten itzi:

Zeleta'ren itzak Larra'n

Euskal-idazle ta olerkari adiskideok: Oin urrengo zuekin Saindutegi ontan, jaikizun berean aurkitu nintzanean gogorazi nizuten gauza bera, gogoraziko dizuet, nere gaurko lendabiziko itzetan.

Alegia, Bizkai'ko lurra ikutzen dedan bakoitzean, beti gogoratu izan naizela Bizkai'an ezagutu nituan euskeltzale sutsu ta euskal-idazle ospetsu izaniko Agirre (Txomin), Aizkibel, Altube, Altuna, Ametzaga, Arzubiaga, Arriandiaga, Arruza, Azkue aundia, Belaustegi, «Tabirataarra», Belaustegigoitia, Bustintza «Kirikiño», Eguzkitza, Eleizalde «Axe», Enbeita, Errazti, Erkiaga «Lauaxeta», Garitaonandia, Garro «Otxolua», Ibargutxi, Ibiñagabeitia, Jemein, Urriolabeitia, Zabala-Arana, Zamarripa «Zarronzale» ta Saindutegi ontan bizi ta il zan Jauregi'tar Gabirel Karmeldar Aba, «Kimia» ta «Pisia» liburuen egille maitagarri zanarekin.

Aiek izan genitun, gipuzkoar Agirre «Lizardi», Altzaga, Artzeluz «Luzear», Azkoitia Aba «Jelalde», Intzagarai, Muxika «Jeme», Ormaetxea «Orixe», Zaitegi ta Zinkunegi'rekin batean, euskal-idazle argi ta jatorrak; eta berdin, napartar Agerre «Gurbindo», Arburua, Bera Aba, Manezaundi, Larreko ta gaur oraindik gure artean degun Intza Aba agurgarria ere.

Ainbeste ta ainbeste euskal-idazlan eta liburu irakasgarri utzi zizkiguten idazle ooregarri oieri irakurriz ikasi gendun «h»'rik gabe ta bear-eztako erdal-itzik gabe, euskeraz garbiro ta jatorki idazten, aien jarraitzaille zuzenak geranok ere.

Baiña, orain, ainbeste urtetan lengo idazle gogoangarri aien idazkera-arauz idazten jarraitu ondoren, **moda-berriko** euskal-idazleak sortu zaizkigu, an-emen, gure emendik aurrerako euskal-idazlanak eta liburuak «h»'rekin, eta euskera-garbiz ordez, dalako euskerantoz idatziak bear dutela izan, esanez... Baiña, arrigarriena, beste au da: Alegia, Ikaskizun berri oiek euskera jatorraren-zale geranok lagunduz bizi diran izparringietan ari zaizkigula, guk iruntsi ezin ditugun ikaskizun berri oiek ematen! Eta, zio orretxengatik izango da, noski, guk oraiñaldian «Z-A»'ra bialitako idazlanak **saskiratu,** eta beste oienak argitaltzen jarraitze ori...

Dana-dala, edo gauzak orrela diranez, nik erabaki bat artu det, ondorengo itz-neurtu aben bidez adieraziko dizuedana:

«Zeruko Argia»n idazteari
utzia naiz ni, oingotik,
beste batzuk'e utzia duten
zio ber-berarengatik.
Gure idatziak «h» gabe diradelako,
edo ez dakigu, guk, zergaitik...
aspaldi ontan, gelditu dira
argitara eman gaberik...
Orain ez dute izango, beintzat,
SASKIRA jaurti bearrik!!

Bordari'ren zeaztasunak:

KONKRETUA TA ABSTRAKTUA

«Auntzaren gaberdiko eztula»

Giza gaztedia gaur egunean kontestatari biurtu da; ola uste du. Gaztea beti gazte. Sekula gazterik izan ezpalitz bezela dabiltz. Nik, kukuxo zaarrak par egiten dut. Ni ere gaztea izana bai naiz eta oraiño gazte diardut; naiz eta salto aundirik ezin egin badut ere. Gaurko giza gaztediak, konzeptuak nai ditu, konzeptuak; estructurac, planificazioak eta problematica concretuac! Abstractoa ere maite dute ba...! Nola ez; gazteak bizi egin nai du. Arrazoi bide du. Baiña...

Konkretua ta abstractoa bi gauza dituzu. Konkretua, zeatza duzu. Abstraktoa... auntzaren gauerdiko eztula! Bai, bai; biak alkarren artean zer ikusia daukate, alajañetan!

Gure autsikia, kukuxoaren koxka, gauza konkretua dezu. Eta onela k-rekin idatzi bear da. Ka, beti ka. Castellanoen beste CA (?), ori duda mudakoa bait da. Beraz, gure koxka gauza zeatza da; guk gero zapi zuritan usten degun urratsa, konkretua ere bada, noski, baiña abstraktoa da. Auxe maratilla esango du norbaitek; bai, kukuxo maratilla dezute maratillena. Gaurko margolari aunitzek berdinduko balituzteke gure maratillak, gure k-k irudiak... emendik ara aundituak!; berebiziko sariak irabaziko lituzteke.

Batian, **«Tirrinaia»** zeritzan kukuxo margolariak berazkoa zun eta, ikusi egin bear zan gero aren lana. Luze xamarra zan, tergalezko gonazpiko batean egiña. Via lactea'ko izar danak antxe agertzen ziran. Beitik gora begiratuta Kapilla Sixtina'ko iduri guziak ederki iduritzen ziran. Ori, lupa aundirik artu gabe; giza-begientzat alako miniaturarik ez da izan.

Gero, gaurko zeinbatzuk, alako zirri-borro batzuek egin dituztela ta; tokitan zeok, Artea ta partea!

Nik gaurko gazte aunitzi galdera au egingo nioteke.

«AUNTZAREN GAUERDIKO EZTULA ZER DA?

Nik esango zer dan.

Ni gazteagoa nintzala, kukuxo artean, bai, naiko kontestaraia nintzen. Zergatik, eta zertarako zan, nere kezka. Eta nere amak esaten zidan, kontu, nere mokoko kukuxoño ttipia; kezka ez duk koska. Ik, bizi nai badek koskegin bear dek, kosk! Kezkik gabeko koskik ez dut nai, ama! Eta nik, beti kezkati egin oi izan dut kosk. Ta gaiñera beti gizonen artean nenbillen. Beti jakintsuen artean. Emakumetatik urruti; txorabiatu bear dezu ta koloni-merke usai zikin oriekin. Bestalde Intelectual odolak adi-bidez Koldo Mitxelena'renak, ba-dizu alako espiritu usai bat. Bai, gizonen artean, gizon euskeldunen artean nenbillen eta nabil usu. Eta askotan itzetik-ortzera au zerioten eta deriote. **Ori ez duk auntzaren gauerdiko eztula!**

Nolakoa ote da ba, auntzaren gauerdiko eztula, nion nerekiko. Batian, gaua pasatzeko asmotan «Borda» baserriko ukullora. Auntza ederra zeukaten; bizar apaiñekoa, sorgiña begiratzea, seriosa, adarrak egokiak (benetako okerrak) errapea, tilin-talan. Onetxek bai, norbaitek egitekotan gauerdiko eztula bikaiña izango duela.

Gau epela zan. Arteka igelak, kua! egiten zuten. Apoak ere etziran mutu. Ontzak ixxx-ixxx-ka, ji-ji-ji-ka gau ixillean, gaur izartsuan, illargi beteko gau artan. Eliza Nagusiko ordulariak noizpait amabiak jotzen asi zan. Oraintxen dek garaia, erne kukuxo! ta amabi-amabiak bukatzerakoan... Tarrat-pun! berebiziko uzker aundi bat egin zun auntzak. Eztul ederra! Ederki pegatu zian! Hipurdiko katarrua zuan noski gau artan. A zer nolako eztula! Zeaatza, concretua, ta benetako abstractua ta espaziala.

* * *

Ta orrela, alkarri datorren urterarte baiño lenago ikusteko aukerea izan dagigula eskeiñiaz, etxerako bidea artu gendun.

AIXOLA

ELURRA TA GURUTZEA

Teruel mendi-gaiñean dago jarrita. Bide nagusia goraka dijoa balkoi moduko enparantza bateraiño. Enparantzaren balkoitik, an beeran, tren-bidearen atzetik ibaia eta erriberak... Enparantzatik gora karrika erpiñak aldatzgoran... Goiko gallurrean katedrala.

Gerratea zan. Ilbeltza... Oro beltz. Oro otz. Izotz beltza: emeretzi gradu zerotik beera...

* * *

Egunak dira Teruel gorriak arrapatu dutela. Kontratakea, urdiñen erantzuna, bat-batean izan da ere, ezin dute Teruelik atzeman... Erribera guzian zanga-zuloak egin dituzte, beren buruak gorde aal izateko... Zanga-zuloak bai, trintxerak bai, beste gordelekurik ez, ordea, gau beltz onetan...

Jatekoa urri ta eskas. Gaueko izotza, izotz beltza, sudurreko tantana izoztekoa... Elur-gaiñeko izotza. Emeretzi gradu zeroren azpitik.

* * *

Pattarrik ba'duk?

—Boteilla baten ipurdia zeukat, Gabonetan etxetik bialdutakotik.

—Ementxe gogortuko gaituk gaur berogarririk gabe. Ez jan da ez eran.

—Tok, erazak tragotxo bat.

—Ederra ziok. Zintzurretik beera sentitzen dek onen beroa...

—Lastima dek besterik ez izatea...

—Bai, gizona.

—Aizak i, lo artzen ba'diat esnatu nauk lenbailen.

—Berdiñ esaten diat iri ere... Gaizki bear giñazke bestela...

—Bart, Joxe Etxepare esnatzeke il duk.

—Tiroren bat?

—Ez, gizona; otzak gogortuta...

—Kamoia zeukak ba arrek lo egiteko...

—Kamioi-barruan lo artu dik bart ta goizean barrutik gorputz atera ditek...

—Kamioi-barruan izoztu...?

—Gutxirako al dek au...?

Gaiñeko zeru-sapaiean, odei artean, izarrak nir-nir... Elurrak eta otzaren otzak otsandu ditu gizonen gorroto griña guziak. Pakea dirudi. Tiro otsik ez da iñun entzuten. Eriotzak zuriz jantzi du bere soiña ta bere magalpean artu ditu gizonok, naiz gorri naiz urdiñ... lo artuko duen guzia eramango du berarekin...

Izotza elur gaiñean. Janik ez. Sua egiteko gairik ez. Ez arbol, ez sastraka... Ezer ez.

Aize miña. Aize meea, aiztoa baiño zorrotzago...

—Gaur, Txomin, ementxe garbituko gaituk...

—Su pixka bat egiterik ba'gendu...! Epel artan eutsiko geniokek bizirik...

—Bai, baiña, nun arkitu ezer erretzekorik?... Emen ez zegok ezer...

—Or atzean kanposantua...

—Ta?

—Egurrezko gurutzeak daudela or...

—Motell, motell...! Ori sakrilejioa izango dek...

—Gure bearrak ere ez dituk ba txiki...

—Bai, ori ala dek; gauza oiek, ordea, gauza serioak dituk...

—Gurutzea kenduta ere oieri ez zaiek okerrik etortzen; guri, berriz, bai gurutzerik kentzen ez pazioguk...

—Ni ez neok atrebitzen...

—Egurrezko gurutz oiek gauza dituk, gauza utsak; gu gizonak gaituk... Gauza guziak baiño leenago ez al dek gizona...?

—Bai, bai, arrazoi-bidean agoala ematen dik, ni ez nauk piatzen, ordea; Guretzeekin ez diat jokatu nai...

—Ori azaleko gauzeei geiegi begiratzea dala esango nikek... Azalakin ajola geiago mamiarekin baiño... Joka-bide zuzena iruditzen al zak ori...?

—Sakrilejioa egingo gendukek gurutzea erreta... ta ori ez ziak konzientziak agintzen...

—Ondo da... Utzi daigun lelo orreri bakean... Ken pentsamentutik gurutze oiek...

* * *

Gaueko ordu txikiak aurrera dijoaz... Otza geroz da aundiago... Aizearen txistua trintxeragaiñetik... Loak artuko ditu...

«Txerri goseak ezkurra ames»... Txomiñ amesetan: sua, sua, sua... Su epela... Bat-batean biotza eztutu zaio barnean: kanpusantuko gurutzeak sutan erretzen... Ze pekatu ikaragarria...! Garraxiak irten dio eztarritik...

—Zer dek, Txomiñ!

—Zera, amesetan nengoan... Gurutzeak erretzen ikusi zetiat...

—Oraindik ere orrekin abill... Utzi zek bakean gurutze oiek...!

Esatea erreza da, egitea, ordea, ez da aiñ errez izaten askotan... Lo-kuluska berriz ere Txomiñek... Zanga gaiñetik iñor dator... Berak garbi ikusten duna:

—Zeiñ zera gurutze astun ori bizkarrean dezula...?

—Ez nauzu ezagutzen...?

—Baietz esango nuke...

—Zein naiz ba...?

—Kalbario bidean ikusi izan oi zaitut gurutze aztuna bizkarrean...

—Gurutza egunerokoa da Gizonaren semeen bizkarretan...

—Bai, ba dakit...

—Zurezkoa...

—Bai, egurrezkoak izan oi dira...

Besterik gabe bota du Jesusek bizkarrean zekarren gurutza sutara... Argitasun epel artara esnatu da Txomiñ... Bere ondoan saldadu laguna irriparre gozoa (eriotz zuriaren irriparra) ezpañaetan... Eldu dio sorbaldatik eta esnatu du:

—Esnatu adi, Pello, ill nai ez badek...!

Peillok irripar eroa ortzetik kanpo... Eman dizkio Txomiñek bi belarrondoko:

—Jaiki ta ibilli berandu baiño leen...!

Esnatu arazi du ta bere onera ekarri:

—Goazen, Peillo, kanpusantura gurutze billa...!

—Zeerr...?

—Gurutze billaaa...!

—Ta konzientzia...?

—Baketu zaidak ziaro!

Gurutze aieri eskerrak etzituan biak Eriotz Zuriak eraman.

A. ARRINDA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra BILBAO - Casco Viejo Tendería, 15 eta 16

ABADEAK EZKONDU? BAI ALA EZ?-II

Abadeak ezkondu dirana gauza jakiña da. Azken aldiotan euneko iru-edo, or nunbait. Geiago be egingo dira. Ta arazo au dala-ta, eritxi guztiak ez datoz bat. Batzuk mire eginda, zurtz eginda dagoz. Beste batzuentzat, ostera, ez dago emen zetan mirariturik. Giza-izakerari dakogion zerbait da. Abadeak be ezkontzeko eskubidea dauko, gura izan ezkero, beste edonork legez.

Abadea ezkondu daiteken edo ezkontzea bidezko dauan ala ez, ori ez dogu lantxo onetan aztertuko. Beste au baiño: ezkonga izandako abadea ezkondu badadi, gizon onek abade-eginkizunak bete ete daikez? Bai? Ez? Auxe da orain darabilgun auzia.

* * *

Baietz diñoe batzuk, ezkondu dan abadeak be abadeari dagokion beargintzan jardun daikela. Zergaitik ez?, esaten dabe. Sortaldean ezkonduak abade egin ezkero, eta Sartaldean be aldakuntza ori leentxoago-gerotxoago etor baleite, zer dala-ta abade ezkonga izan dana, ezkonduta gero be, arlo orretarako gai ez izan? Norberak naita ezkonga-bizitza betiko aukeratu arren, urteak joan eta urteak etorri, onegaitik zein aregaitik, ezin ete lei aldatu? Ez, ezkondu dan abadeari ezin dakikeo abade eginkizuna zuzenbidez ukatu. Orra gaur zabal xamar dabilkigun pentsakera. Baita abadeen artean be.

Arazo korapillotsu onetan argi apur bat izan dagigun, begira gakiozan lenengo eliz-kondairari. Beti egin izan dana edo iñoiz egin izan ez dana, Elizak nekez aldatuko dau. Argi-emoille dogu, beraz, kondaira. Ta zer dirakusku eliz-kondairak? Auxe: ezkondu dan abadeari Elizak betibeti galerazo izan dautsala abadetzako zeregiñetan jardutea. Leen eta orain. Elizak ez dau a lakorik sekula egin. Ez Sartaldeko Elizak. Ezta Sortaldekoak be. Ezkonga izanda gero ezkondu dan abadeari abadelangintza beti ukatu izan dautso.

Argibide bat. Amaiseigarren mendean guk gaur daukagun antz-antzeko eztabaida izan zan abadeen ezkongatasuna zalata. Lutero'k eliz-lege ori guztiz zitala ta kaltegarria zala iñoan, eta orregaitik kendu egin bear zala garraxika eskatzen eban. Soto'tar Domingo, Salamanca'ko teologo ospetsuak, ostera, Elizaren lege ta jokabidearen alde urtenik, aspaldi-aspalditik etorren oitura aitatzen eban, au da, laugarren gizaldian Nicea'ko Batzarra egin zan ezkerokoa gutxienez, eta Eliza guzti-guztiaren jokaera bakarra auxe izan zala: abade egin ezkero, ezkontzea galazota izatea. «Gauza jakiña da —iñoan Soto teologoak— abadetza artu izan dauana ezin izan dala ezkondu».

Nicea'ko Batzarrak galerazo egin eban abadea ezkontzea. Ta ori Eliza guztirako. Orregaitik, ezkonga izateko asmoa eukenak abade egiteko oitura aurreragokoa zan, eta oikuntza onek gaur arteraiño iraun dausku. Sortaldeko Elizan besterik jazo da, ori bai. Ezkonduak abade izateko oitura izan da ta ba da, baiña oitura onek beranduagoko batzar baten izan eban sorrera, edo zeatzago esateko, 692 garrenean Sortaldean egiñiko Sinodo zalako baten, ez Eliza guztiko Batzar Nagusian.

* * *

Zergaitik ete da, abade egin ezkero, ezkontza galerazotze ori? Zer dala-ta ezkongatasuna apurtu ezkero, abade-zeregiñak ukatze ori? Ezkontza abadegintzagaz bat ezin etorri daitekelako? Ez, orregaitik ezin izan. Beste zerbait dala dirudi gorabeera onen sakonean Elizak ikusi izan dauana.


Ezkongatasuna maita izateko era bat da. Norberaren gurari utsez aukeraturiko ezkonga-bizita diñot, ez gogo txarrez eta besterik eziñean arturikoa edo zama astun eta eroan eziñekoa dalakotzat leporatu izan dana. Ezkongatasunak, jakiña, ez ezkontzea dakar. Baiña ez ezkontze ori ez da beiñena ta mamin-mamiñekoa. Ezkongatasuna ez da sakon-sakonean zerbaiti uko egitea, uko egin bear bada be. Maitakuntza bidea da, ta maitakuntza onen indarrez, ezkonga dana Kristo'ri oso-osorik eta bitarteko barik eskeintzen jako. Gizonei be bai bide batez, gizona, edozein dala, Kristo'ren ordezko, Beronen agiri ta ezaugarri dogu-ta. Kristo'gaz eta anaiarrebakaz maitasunezko artu-emon beroa dakarsku ezkongatasunak. Onangoa ez dan ezkongatasuna ustela da ta ondamendira doake gaur edo biar.

Ori dala-ta, ezkongatasunak, jatorra izan dakigun, betiko leialtasun osoa eskatzen dau. Gunagunako eskakizuna dau ori. Aldi baterako bakarrik izan daiteken birjintasun-asmoak, zuzena ta bidezkoa dan arren, ez dauko orain aitatzen dogun ezkongatasunaz zer-ikusirik. «Betiko» ori moztu badagigu, maitakuntzari uko egiten dautsagu. Ez daukaguz maita izateko era bi, bata aldikoa, bestea betikoa. Edo norbait beti-beti maita izatea nai dogu edo ez dago benetako maitasunik. Ta ezkonga danak Jainkoa ta gizona maita izateko bide orixe aukeratu dau beretzat.

Bestalde, gogoan izan gizona ezin daitekela beti gazte izan. Noz-edo-noz bide bata edo bestea artu bearra dago. Ta bizialdiaren erdirantza ezkongatasuna urratzeak eta beste bidea artzeak eldutasunik eza edo olako zerbait adierazoten dauala esan bear. Ezin leiteke esan, beraz, ezkongatasun-bidea itxi arren, Jainkoagaz zintzo izan daitekenik. Geienetan beiñik-bein. Batetik Jainkoa maitatzeko norberak gura izanda bizialdi guztirako aukeratutako bidea bitarteko barik maitatzekoa izan zan. Bestetik, Kristo'k bere ezaugarri diran gizonen bidez maita izango ginduzala aditzera emon euskun, gizonakaz maitasunezko adiskidetasun eztitsu batean bizi geintezan.

Au guztiau buruan dogularik, errez ulertu daiteke berez-berez datorkigun ondorena: ezkongatasuna beretzat aukeratu dauanak ez dau maita-bide ori, al dala, alboratu bear, Jainkoagaz zintzo-zintzo izatea nai baldin badau. Ta onango erabagia artu dauan abadea —bere erruz edo bere erru barik be izan daiteke— ez dala gai dirudi abadeen arlo berezian lan egiteko. Ezin izan maitasun eta adiskidetasun utsa dan Ebanjelioaren iragarle ta irakasle jator. Ezin leialtasun guztizkoaren testigantza emon. Gure egunotan gutxiago, fedez, maitasunez eta serbitzugurariz beteriko gizon adoretsu ta osoak bear dira-ta.

PUXANA



IÑAKI'ren Jostundegitik bere bezeroeri

San Pedro, 4 401 Urrut. MUNGIA

ELIZA KATOLIKOA TA MUNDUA

Eliza katolikoaren kondairan dana ez da garia. Lastoa be arkitu geinkio. Baiña neure ustez bere alderdi ona askotaz andiagoa da.

Gaur Elizari akatsak soillik ikusten dautseez. Ez nabil, orain katolikoak ez diranakaz; onein esanak ez nabe arritzen. Ez, orain Elizari akatsak arpegira botatzea, katolikoak dirala diñoen askok gogotsu egiten daben lana da.

Au be dana txarto dagoala ez neuke esango. Gure utsak geuk ikusi bear gendukez iñok baiño lenago, eta zuzendu, kanpokoak ezer esateko zain egon barik. Baiña akatsak billatu ta zuzentzea asmo onez egin bear da, guraso onak bere seme-alaben utsakaz jokatzen daben lez. Gure arteko salatzailleen egitekoa dana asmo onez ete da? Ezetzean nago.

Katoliko narruz jantzita Eliza katolikoaren ondamendia pozik ikusiko leukeen gitxi ez dagoz orain.

Besteak beste, ara Elizari egiten dautseen salakuntzea: Zera, ilda geroko bizitzagaz soillik arduratzen dala, munduko bizitzagaz ez dala arduratzen. Esan daiteke, gu katolikuok danok mundua lagata basamortura joan garala bedarra janaz bizia otoitzean igarotzeko asmoz, edo etxetzarretan sartuta kartujoen bizitza egiñaz danok bizia igaro nai dogula. Baiña zorionez edo zoritxarrez gauzak guztiz bestera dira. Gu katolikuok, katoliko txepelak, geienok ilda geroko beste munduak baiño oiñakaz zapaltzen dogun onegaz geiago arduratzen gara. Ementxe alik eta onduen izan nai genduke ta orretarako alegintzen gara. Beste edozeiñek baizen gogotsu lan egiten dogu; lanari irabazi ona atarateko nundik edo zelan jokatu arduratzen dira negozioetan sartuta dagoazanak. Katoliko jendea munduko beste edozein lez ikasketak egiten alegintzen da. Kulturaz jaubetzeko ardura dauko. Ta iñok ez bei esan bakoitza bere buruagaz arduratzen garala baiña ez munduagaz, ba, orixe da mundutar geienon jokabidea.

Ta ortixek dator geienbat munduaren aurrerabidea.

Gaiñera guk katolikuok munduaren onerako egin izan geinkeana ez da soillik bakoitzak geure buruaren alde egiñaz egin doguna.

Kulturearen abia izan da beti Eliza. Gaur egunean millaka asko dira mundu zabalean katolikoen ikastolak, eta milloika lagun euretan ikasketak egiten diarduenak. Ta baita be ba'dira katolikoen ardurapean unibersidade, obserbatorio ta olakoak. Ta misiñoietan eliz gizonak egin izan daben eta egiten diarduen lana be asko orixe da, mundutar bizitza obeagotzen alegintzea.

Gaiñera munduko bizitza obetzeko danetik asko sortu edo produzitzea ez da guztia, ta orretara eroaten gaituan tenika edo jakintza be ez. Munduko bizitza obetzeko guztia tenika ta produziñoa ba'litz bake-bakean biziko giñake, tenika ta produziñoa goi-goian arkitzen dira-ta. Baiña ba-dakigu gauzak zelan diran. Mundua gero ta aurreratuago ta iñun bakerik ez, zuzentasunik ez, gero ta asarre, ezin-ikusi ta guda geiago dagola esan daiteke.

Ez, ez da dana tenika ta aurrerabidea munduak bear dabena; oraindik geiago bear dabena beste au da: jendea sendimentu onez jaubetzea. Gizadia obeagoa izan daiteala. Ta au lortu naian beste iñok baiño geiago egiten dau Elizak.

Munduari beste ezerk baiño moral irakatsiak geiago palta egiten dautse. Ta orretan alegintzen dana, dana dalakoa, munduko bizitzea obeagotzeko lanean diardu. Eliza katolikoa, onetan, lenengoa da.

KAMIÑAZPI

Izango ete nok ba?

ENINTZOAN TA NOK

NOK; ori dok ziur samar dakitena... Betikotik ete-natok neu au? Nere zentzumenak ezetz esaten jaustak, ta orrela ziñestu bear. Ez dok ezta betikoa ukutu jaiketan nere inguruko edozer: DOK, eta noizbait egiña bearko juan izan. Ta ez neu ezta inguruko ezer, aldi baten, ez ba'giñuazan izan, zelan sortu gaituk? Berez, beretik ezin!

NORBAITEK sortuak gaituk. Ba-litzakek bitarteko bateron-batek sortuak izatea. Nik neuk be, gaur jakiagunetik, zerbait iraunkorra sortuteko aiña naizela uste juat, tramankulu bat-edo, lurretik meatzak jasotzeko aiña litzakena, ta bere barruan bere antzekoak egingo leukeazana be bai (ikus Euzko-Gogoa, III-IV, 1957). Baiña ni beti bitarteko, baita orretarako jarabiadazan gaiak be. Bitartekorik izan ba'dok, ba, ni ta lenengo sortzearen artean, ori be sortua izan dok.

Betikotasuna nori ezarri? Gaiari ezin, ezta Izadiari be; ez dozak betikoak, ezin; ezta berez, bere buruz sortuak be. Betikotasun ori beste zerbaiti ezarri bear: ukutu ezin jaikenari, ulertu ezin dokanari, asierarik ez jokan orri, ta ona ezkero, amaitzarik be ez.

Ta orrela gizasemeak URTZI jok ziñesmenean. Sortzaille bakar eta betikor baten ziñestu be. Ez dok baiña au gaur emen aztertuko joadan kezkea. Beste au baiño:

JAUNGOIKOA TA GIZADIA.—Arek sortua au, ta Beretzako sortua atan be. Artu-emonik ba'legok, Aren eta gure, nere artean izango dok. Ta Arek beste bizitza bat ezkeintzen ba'jaustak, ta ori irabazteko baldintza batzuk jarri ba'jaustaz: «alkar maite, iñor ez il...», gizadia, ni, bizitza barri orren jabe izatera eltzeko izan dozak. Auzi au ba, Aren eta gizadiaren artekoa dok.

Laguntzeko, bide ori erreztu ta okerzirkiñik egin ez juadan, tresna batzuk jarri jaustazak, eta neuk be, bizi-izateko zeregiñetan murgilduta nabillela, jarri bear izango najituan; ez dituk baiña berez, beretik tresna utsak besterik, ta orreitatik bata: abadetza.

Bai tresna bat esan juat, eta ez gizadiaren arazoa baiño garrantzitsuagoa. Ez; Jaungoikoakin konpondu bear dana, neu, gizadia gaituk; azken epaian neuk erantzungo juat-eta, ta neuk bakarrik.

Tresna bat. Laterriak be —ta au be berez edo bere izatez, giza-talde baten, ondo izaterako, tresnea besterik ez dok— bere ertzain, zaindari ta zerga-jasotzailleak jartzen jozak. Ez dituk baiña, ez bera ezta bere morroi orreik, gizonaren aukera batzuk baiño bizitzari laguntzeko, ta onek aukeratu bear lajaukeezanak beti, ta iñoiz be ez gizona bera baiño garrantzi aundiagokoak, naizta orretara biurtu sarriegi.

Orrela ba, abadetzea tresna bat dok; gizadiaren, nere aukerapean jagok. Eta ez ete-litzakek gauzak bere senetik etaratzea, tresna orrek bedorrek zelakoa izan bear daben aukeratzea? Bitarteko utsa ba'dok, laguntzarako tresna bat, erabilli bear dabenak esan bear lajeukeek zelangoa gura daben izan. Ta nik neuk neurea aukeratzeko eskubide osoari eutsiko jautzat: Ezkondua? Ezkongea?. (Ezkonduak abadetu aurretik, zergaitik ez lenengo mutil-zarrak? Askotxo izaten dozak gure errietan). Iñoiz bietarikorik ba'litzok, nik neureak aukeratuko joadaz. Gaur, orra nere parrokiakoak; ezin orreik aukeratu beintzat: Eurok or diran artean ez eidok euskal mezarik izango, jiñoek; orreik ba ezin izan nere laguntzaille, inpernurako ez ba'dok.

Baiña gai au sakonegia, edo gitxi aztertua dalako urrengorako lagako juat. Ara baiña, Gabonak be urrean dozak; laster mai inguruan etxekoen alkarmaitasun eta sendiko berotasunaren eguna, Jauna jaio zalako ospatuko juagu. Apari on bat dagizuela danok! Batzuk oillasko edo oillandak maite izaten jituezak; ni neu ormona-emez loditutakoen bildur izaten nok. Oillarra bein jan juat, Txopa'k ekarrita, baiña burrukalarietakoa zalarik zaillegia uan. Oillo zarrakin egindako saldea be sendagai ederra dok, baiña gaixorik izan bear. Orra ba, ba'da ez ba'dan, nere ustez, kapoia onena...

BEIZTEGI'TAR JON



OMENALDI JATORRA

Azillaren zazpian gure aspaldi bateko paladun pelotari azkarrak, ta dakusgunez, urteak alde batera, oraindikarren geienak sendo ta mardulak diranenak, Bilbo'ko «Club Deportivo»an ondo irabaziriko goratzarre beroa izan eben. Euretarik batzuk ogeta-amabost urte alkar ikusi barik egozala, biotz taupada berezi barriekaz ta lilluraturik lez, ber-ikusi ziran, ta alkarte ondorengo gomuta ta oroimen tarteko besarkatze a, bertaratu ziran guztioi luzatua izan ba'litz bezela, an agerturiko danok euren barne-biotz zirraren ikutzez ezeze, txaloz ta arpegiko alaitasunez be pozarren onartu oi ebela ager-azo eben.

Ez da izan ez egun zoragarri ori laister aztu ta oroimenen ganbarara bota oi dan bezelakoa. Gain-gaiñeka ez ba'da be azaldu dagigun:

Lenen, Arbeo abade jaunak ildako palaz jokatzailleen gogoegaitik Mezea emon eban ta itzalditxo polit-samur bat egin. Ondoren gaurko pala jokatzaille gazteak illara bitan jarririk, palak jasorik ta albo bietako zurok goian batu ta guztiokaz uztaiak egiezela, bide erdi-erditik adiñezko ta aspaldiko gure Txistu, Inza, Zarraga, Izagirre, Narru ta beste pelotari arrimeak aurreratu jakuzan. Gero, banan banan notintza guztiaren aurrean aurkezturik, giza-talde sutsuak —zutunik danok— eten gabeko txalo jotzeaz txera egin eutsen. Geroko baten, amar dantzari taldek euren omenez ta goragarriz osoturiko dantzak txastatu genduzan.

Ni be, ba-dira urteak, sarri askotan izandakoa naz lengo baten «Euskalduna» deituriko pelota-lekuan. Bertan bein ta barriro ikusi nebazan Txikito gallartarra, Ermua, ezker bikaiñezko Izagirre ta orduko beste pala jokatzaille urtenenak euren sasoi onen-onenean. Arrezkero, urteen gandua bitarteko, pelotatoki a ez dager; bere tokian ori bai, etxe illara barri itxurazkoak eregi ziran. Baiña ori ta be, orduko palazko pelotari punterengoak ba-dirana geien bat, omenaldi egun ontan ba-dagerre.

Ta bertaratu ez ziraneri alai bide izango iaken jai onen azalpena, AGUR'en bitartez damotset. Pelota ta euskal kutsuzko beste jai gogoangarri bat izan gendun egiz. Ta ugaritu oi diran, euskal-zaletasunerako bide egokiak diranez. Orain Erremonte ta Zare-txisterazko pelotari zaar trebeak be euren goratzarrea itxaroten dagoz. Erremonte pelota jokoarena laister samar Ernani'n izango dala dirauskue. Txisterazkoena Markiña'n atan be, baiña zertxobait geroago. Ori ta asierako gertakizunetan be ba-daragoiela dirudi. Ordurate ba irakurleok!

Amaitu bide, gaztetan ikasiriko pelota jokoaren doiñu gozoko ereserki zaar bat agertu-azotera noatzue bereala. Ez luzatzearren baiña doiñua iztera goaz. Iparraldeko Lapurdi'n datzan Azparren'go pelotari yayoak jokaldia amaitueran abestu oi eben:

1.—Irabazi dutela gaurko neurriketa, Poz-pozik datoz gure mutil on-onak.
2.—Aien besarkada indartsu ta gogorrak ez du munduan iñoiz pelota jokoak.
3.—Ni euskaldun jatorra baserrian jayoa, pelota jokoa da nire poz dana.
4.—Atozte bai mutillok, atozte pozgarri ta eskeiñi bai guztiok gure Jainko Jaunari.

ARREGI'TAR JOSU

ODOLAREN DEIA

Une batean uste izan ba'genuan ere irlandarren aiots eta deadarrak izkilluen punpetan ta bonben lerteketan itotzen zirala betirako, ba-datorkigu azkenaldi onetan bestalde itxaropentsuago bat. Aurrekoan genionez CMT baten abots indartsua altxea zala. Indartsua, oiñarritua bai-dago ludiko langilleidiaren berotasunean.

Gaur, baiñan, gizon soil baten abots ernagarria dakarkitzuet, baiña soil eta guzti, bere abotsa benetan indartsua da ere, mi lloika ipar-amerikarren itzaurrea bezela baitda. Edward Kennedy, egiarengatik eta zuzentzarengatik bizia eman zutenen senidea duzute. Il ziranen bezin trebe, anaiek bezin ausarta mintzatu da, eta bere oraingo mintzoan odolak eman dion bere Irlanda'ren aldezko arrazoiak izan ditu. Biotzean puzunerik gabe, mingaiñean illerik gabe mintzatuaz, ain ziur.

Ipar-amerika'ko Senadoan egin dituan eskabideak edo jokabide-gaiak, labur-zurrian auetxek dituzute: Iñor ez dezatela atxillotu prozesorik gabe; onelatsu dauzkaten guztiak askatu ditzatela; irladarren giza-eskubideak bete ditezela; agindutako aldaketak ibillian ipiñi ditzatela; Ipar-irlanda'ko Parlamentoa ezegin dezatela; arazoetan zer-ikusirik dituzten alde guztiak batzartu ditezela ta, batez ere, Ulster'en dauden englandar gudariak eraman ditzatela euren aberrira.

Pekatariak iñoiz ez du nai izaten agirian bere pekaturik aitortu. Gutxiago erri menperatzaille batek. Beraz, onegatik, ez dira oso atsegiñez aditu Kennedy'ren itz gogorrak. Eta berari ekin diote. «Zer gertatuko litzake —diote— englandar gudariak aldegingo ba' luteke? Askozaz txarrago...»

Ez izan, ordea, uste ontakoa Kennedy. «Itxaron nuan erasoa —dio— besterik ezin bai-ditzeke itxaron konsientzi errudun batengandik. Englandarrak eroturik dirudite Irlanda arazo onetaz».

Ipar-amerika'n bertan ere izan ditu erasotzailleak. Auteskundeetarako zabalkunde bat besterik ikusi ez dutenak ere ba-dira; noski, zazpi ipar-amerikarretatik bat irlandar odolekoa bait-da. Eta, onela, odol itza atera dute, odolaren deia... Baiñan auteskundeetarako zabalkundea ba'litz, zazpi oietatik ia beste seirak, englandar odolekoak diranez, bere aurka jartzeko arrixku bizian legoke.

Ez dut uste auteskundeak dabiltzanik Kennedy'ren asmoetan. Kennedy'k beste zenbait piztiek bezela, odolaren deia edo bere jaioterriaren edo asaben jaioterriaren deia, odolaren bitartez biotzeratu du: Piztiok, jaio izan ziren tokietara joan nai izaten dute iltzera, eskerrez beterik. Kennedy'k bere odola, abizena, kistartasuna eta demokrazializetasuna eman dion aberriraiño zuzendu ditu bere begi ernaiak. Zabaldu ditu, eta ikus, oraindik Europa'k ezagutzen duan zuzengabekeri aundiena, bere erriak eta bere odolekoak jazatzen dutela.

«Justiziaren monopolioa» dutenak ixillik egon ditezke arazo onetan ezer ez dijoakiotelarik, baiña odol berea daramanak, odol orretan darama oiñazea. Amerika an dago, urrutian. Baiñan an dauden irlandarrak, beste europar erri askoren eraberean berez eta bestez, ez daude gortuta aberriaren deiari.

Norbere erriaren aiots minberagarria aski odolak kiskal ipintzeko. Irlanda'n ixurtzen dan odol beroak sutan ipiñi duan bezelaxe borrokalari zintzo ta trebea dan Kennedy'ren biotza bor-bor irakin araziaz, mingaiñari eragin ere munduari oikua dagion Irlanda'n zuzentza burutu dedin.

OLAZABAL'TAR XABIER

ARTEKALE

GAINGAIÑEKO SALTOKIAK

GABON ETA URTEBARRI ONEITAN
ZORIONAK
OPA DAUTZUEZ DANORI

ZUBIRI

GERRI-LOTURAK
AZPI-JANTZIAK
SOINKERA-LIRAIÑAK

Artekale, 50 **BILBAO-5**

ARTEKALE

Artekale'ko erosketea
erreza da ta atsegiña;
kale osoa zeurea dozu,
aukerea bere egiña:
Jantzi, bezuza, oski ta argontzi,
Artekale'an gura aiña.
Gabon aldian, zer erosiko?
Emen bereizte aundiña.

UGALDE

JOSTUNDEGIA-ATORGINTZA

Artekale, 16 **24-09-13 Urrut.**

BILBAO - 5

SABAS

1875'gnean irasia

BITXITEGIA
IPURATEGIA

Artekale, 41
BILBAO - 5

IBAIZABAL

OIALAK-AZKEN JOSKERAK
ATORRAK-GALTZETORRATZEKOAK

Artekale, 35
Urrut. 23-15-93 **BILBAO-5**

OTAZUA

OIÑETAKOAK
OSKI ERABAKARRAK
Ikasleentzat, Ballet-dantza, Oin-ondutze } Bereziak

Artekale, 20 - Correo, 6
21-40-58 Urrut. **BILBAO-5**

JOSKERA BARRI TA GALTZETORRATZEKOAK

Querricabeitia

BOUTIQUE

Artekale, 32 **21-65-67 / 24-89-65** **Urrutizkiñak**

BILBAO - 5

ZUBIRI - MARDONES

ARGONTZI
APAINGARRIAK
BEZUZAGAIAK

Artekale, 50
BILBAO - 5

EUSKAL HIT PARADE

SAN ANTON'go Abesbatzak muturra erakutsi besterik egin ez ba'dau be, or daukagu lenen beste guztien gaiñetik bere «Dringilin-Dron» orrekin. Gabonak be urrean dirala-ta, be uste izan daikezu, baiña ez, ez da ori bakarrik, entzun ba'dozu zeuk be ba-dakizu. Ori da abestea. Ba-dakie bai Arregi'ren lagunak abesten, eta «Columbia» etxeak biribilletan sartzen... San Anton'go eurok barriz bostgarren, «Nere Aurtxoa» rekin, ta lenago esan genduna, edo obeto esateko Ares jaunak esan euskuna egi biribilla: erriak, bere senari ukutu dautsenean, zuzen joan da bere doiñuen billa, betikoak, errikoiak, euskaldunak.

Ta egi au indartzeko, ona emen bigarren «BIOTZ ALAI» bere «Itxasoko Errege» polit orregaz, ta seigarren, ba'da ez ba'da, «Guda Zitala»kin. Ta esango ete dogu ba: aurtengo ezin siñestu aiñakoa, zortzigarren, galdu eziña, aztu eziña, Luis Mariano'ren «Ezin Aztu».

Orain, laster, lenago aipatuta doguzan Usandizaga disko etxearen lau biribillak eta Zorion'en barria agertuko dira. Ez dira ez bata ta ez beste au makalak izango, irrikitzen geratzen gara entzun gurarik.

Baiña, neurketa onetatik at, ezin da ba era onetako doiñuen leiaketan sartu, olan diñosku beintzat Ares jaunak berak, «ez da ori irratietara eskatzekoak ezta autarkiz neurtzekoa». Baiña dakigunez egun oneitan geien saltzen dana, indarrik aundienagaz, «Euskal Meza» ori dogu.

Orren barri jakiteko, entzun eta entzuten dakienei itzi bear zer eta zelakoa dan esaten. Ta ara Tolosa'tik zer diñoskuen:

EUSKAL MEZA BERRIA

Ez da lenbizikoa noski, ez da ere azkenengoa izango. —Ez dedilla izan!— Dana dala, nere ustez beintzat, orain arte nik entzun deien Mezarik onenetakoa da.

Ez bakarrik —beste guziak bezela— errikoia dalako... baizikan txukuna, ederra, ondo borobildua arkitzen detelako.

Aita Barturen'ek «zulo» guziak ondo estali ditu. Zerbaitegaitik da musikalari trebea. Ikusten degunez, itxasaldeko eresi bereziak mirari arrigarriak egiten ditu.

Meza Berri ontan agertzen diran artista guztiguztiak, txiki eta aundiak, organista, abeslati ta bertsolariak, polliki aukeratuak daude, ta ala bear! Ta gero noski, Jainkoak bakarrik daki zenbat lan eta burrukarekin, atera da atera dan Meza aparta, bikaiña.

Gazteiz'ko tipleak, zoragarriak benetan.

Grabazioa, ta onek ere ba-du bere garrantzia, ezin obea. «Columbia» etxe ospedunak ondo jokatu du, eragozpenik jarri gabe! Zorion bero-beroak ba, Aita Barturen ta beste guztiei... Jainkoari eskerrak, oraindik ba-dago «mamia» Euskalerrian.

Euskera, errikoia, bizkaieraz, baiñan ala ere, argi ta garbia, oso ondo ulertzen dana. Zertarako nai ote degu Euskera «batua»? Zergaitik ote gera ain egosgogorrak?



Beti burrukan gabiltza... eta ez dakigu zergaitik. Meza zoragarri ontan. Zazpi Euskalerriak alkartuta alaiki abesten entzun ditugu, erdi negarrez... kikilduta bezela...

Eskerrak emon beti zeru lurretan
Eskerrak emon Jainko Jaunari...

Ori oso ondo dago, baiñan Eleizetan arkitzen degun alkartasun ori, noizbait jarraituko al degu bereizketarik gabe or kanpoan?

Xede on pixka batekin dena egiña dago!

«MATXIN»

Ta eresi-zale onen itz orreik naikoa diñoelakoan, ez goaz ezer bestekin nastatzera. Gabon ta Jainkoak lagun, danori.

ASTI'TAR PERNANDA

Idaztiak. - Datozan jaietarako opari ederrenak

GURE IZTEGI NAGUSIA: DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES, Azkue'tar R. M.'rena.

Ber-berak egin eban axe barriz argitalduta (ogei urte dirala. Antonio Tovar euskalari ospetsuak bearrezko lez eskatzen ebana). Zati eder baten, amaieran, beste 5.000 itz geiagokin osotua, egilleak berak 50 urte zear batuak. Itzaurrea: Gorostiaga'tar J., Xerexeta'tar J. ta Akesolo'tar L. euskaltzaiñak idatzia. Euskal idazle eta jakitun guztiak goratua. (Ale bi, narruzko azala).

* * *

CANCIONERO POPULAR VASCO, Azkue'tar R. M.'rena.

Euskalerriko abesti ta soiñuen bilduma ikaragarri ta zoragarria. 1912'gn Euskal Aldundiak eratutako saria irabazitako lana. Iparramerikar folklorelari ospetsu Edward Blis Reed'ek idatzi eban: «Lan au, idazti yayoa berez, erri-abesti jakintzan diarduenentzant bear-bearrezkoa da». Itzaurrea, euskaltzain gorenengoa dan Lekuona'tar M'ek eta J. M. Retana'k idazten dabe. (Ale bi).

* * *

DICCIONARIO HISTORICO-GEOGRAFICO DEL PAIS VASCO, Real Academia de la Historia'na.

Lenagokoa ber-bera barriztuta, 1802'gn asmo biurriagaz bazkun orrek argitaldua. Idazti onetan Euskalerriko erri, uri, auzo ta baztar —bi millatik gora— agiri dira, bakoitzaren edesti, jazoera, seme jator ainbat ta zeaztasunez osotuta. (Ale bi).

* * *

DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO VASCO, Kerexeta'tar J'rena

Ogetabost milla abizenetik gora, erderazko euren itzulpenakin. Jaiotetxe, jatorri-agiri, lau margodun armarriak millaka, amaieran Gerra'tar Juan Carlos'ek batu ta argitaldu bage utzi euskuzan Garibai'tar Estepan'ek XVI gizaldian batu ebazan euskal jatorrizko argitasunak. (Lau ale, narruzko azal ornituak).

Eskatu zeaztasunak LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'ra, Bilbo'n, Prim, 43-3.º Urrutizkiñak: 23 66 05 - 24 33 01 - 24 87 93.

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k idazti eder eta garrantzitsuenak argitaldu edo, lenago agortuta egozan euskal-pitxirik zoragarrienak, barriz eskuratu dauskuz. Aor, Azkue'ren iztegi ezin obetua; euskal abestiz gainezka datorran beronen Cancionero Popular Vasco; RIEV, entzutetsu ta jakingarria; Kerexeta nekatu-eziñaren Diccionario Onomástico y Heráldico, aor, beste orrenbesteko erraldoien artean «Peru-Abarka» euskaldunen «liburu gorria». Gaur baiña, zure aurtxoak gogoan daroguz, ta emen dakartzuguz erregenetan, jostaillu apurtugarrien artean *ipiñi* barik itzi ezin daikezuna, euskerea umetxo orrein ezpanetan maite ba'dozu beintzat:

Ipuin Ederrak:

1. Pinotxo; 2. Txano Gorritxu; 3. Iru Txarrikumeak; 4. Mari Errauskin; 5. Lamiña Ulegorritxua, ta abar; ta abar 16'ra arte.

Abere Alaiak:

1. Duri Kattagorri; 2. Terry Artzakumea; 3. Dudu Zalditxoa... oneik 9'ra arte.

Nora eskatu? Edozein idaztegitara, edo La Gran Enciclopedia Vasca, Prim, 43-3.º Bilbao-6; Urrutizkinak: 24-33-01; 23-66-05; 24-87-93. Apartado, 1.510. Bilbao.

SARIGABEKOEN GORESPENA

Tolosa'n «Euskal-Abestia'ren Irugarren sariketa ospatu da. 26 abeslaritalde bildu dira guzira. Benetan jaialdi ederra euskeltzale ta musikazale guziok irakurri ala entzungo zendutenez.

Batzaldiko bi sailletan garaille irten diranak onoko auek izan ditugu: Lenengo saillean; 1.º Madrid'eko Akinoar San Tomas'en taldea. 2.º Lejona'ko San Juan Batista'ren taldea. 3.º, «Donosti-Ereski» Donostiar talde berria.

Bigarren saillean: 1.º, «Manuel Iradier» Gazteiz'ko taldea (emakumezko abotsak); 2.º, «Deustoarrak» Deusto-Bilbo'ko talde (gizonezkoak); 3.º, Tolosa'ko «Leidor» taldea (gizonezkoak).

Orietzaz gañera oorezko aipamen berezia lortu zuten: Santander'ko Orfeon Cantabro dalakoak; Lizarra'ko «Coral Estellesa'k»; eta Villaba'ko «Sta. Zezilia» taldeak. (jaun-andreak). Irabazle eta saridun izan diran taldeen izenak lerroz-lerro ipiñi ditugu. Onelakotan gertatzen danez sarien banaketa ez da guzien gogoko izan. Epai-maikoaren erabakia ba'diteke ez erabat zuzena izatea. Oso gaitz eta zailla bait da iritzi zeatz bat ematea: «Subjetiboa izan oi da, egiazkoa baño». Musika berez igeskorra da, entzun ala suntsitzen dana. Beraz erabakia oiñarritzeko ez dago ziurtasun aundirik. Fede onez eta zuzen bakoitzaren ezagueraren arabera artua izan arren, norberak du bere atximendu ta joera.

Epai-maieko maisuen jakituria aitorturik jende artekoak ere ba dugu gure iritzia azaltzeko eskubidea. Eta ausarkeria baldin ba'da ere ni neuk, garaille irtendako errenkada-mailla beste era batean jarriko nuke. Agian, irugarrena, lenengo lekuan; bigarrena, irugarren; eta azken agertzen diranak tokiz igoko nituke... Baiñan alper lana ez egiteko utzi ditzagun Epai-maikoak ipiñi zituan lekuan.

Guziok izan ziran irabazle, orok ez ba'ziran izan saridun. Bai ordea garaille maillaz berezi gabe. Zorionak beraz!

* * *

Ordaiñez, orain sarigabeen gorespena egitera goaz. Merezi bait dute, bete-betean. Zer lana dan erri batean abeslari-taldetxoa bildu ta saieketan leia araztea ortan diardutenak dakite. Ea solfeorik ez dakitenoi musika buruz sar araztea ez da gauza erreza. Neska-mutil gazteai ta nekatutako langilleai atseden eta jolasa kendurik zintzo eta aspertu gabe azken arte egunero leiatzea... Geiago, oraindik, jakiñez aldez aurretik talde oso on eta ospetsuai ezin gaiña artu izango diela. Urrutitik etorri diran kantari-taldeak: Catalunya, Aragoi, Valencia, Alikante, Kastilla'tik gure ongi-etorria pozik eta biotzez eman genien. Saririk ez ba'zuten irabazi bai ordea gure esker on eta txaloak. Aiei euskeraz kantatzen entzutea oso unkigarri izan zitzaigun.

Napar-euskaldun gure anaiok zerbait geiago merezi dute. Gorespen berezi bat zor diegu: Sangotza, Tafalla, lenago aitatutako Villaba eta Lizarra'ko taldez gaiñera. Bizkaitar-giputzok etxekoak ditugu: Oñati, Oyartzun, Donostia'ko Sta. Zezilia, Miravalles, Arenas (Getxo) eta abar, ez ba'zuten saririk jaso, ez dira orrengatik gutxietsi bear. Ez! Arras goitik jardun ziran. Zerbait geiago esan bearra dago ta nere iritzia garbi azaldu nai dut: alegia, «Zarauz'ko Oleskariak», taldea, legez epai-maikoak sariztatu bear izan zutekeala, «Deustotarrak» taldearen ordez. Ez dut esango auek abeslari oso yayoak ez diranik, baiñan, guziok dakigunez, «uts edo poto» egin zuten Zubizarreta'ren «Besta Biaramunean» abestutakoan eta tamalez nai ta naiezkoa zan saridunen artetik baztartzea. Publiko-jendeak eta ni neu ere barne ori uste izan genduen, beintzat.

Ez noa iñoren aurka egiaren alde baizik. Eta au dala-ta Las Arenas'ko (Getxo) «*Las Mercedes*» taldeari gertaturikoa adierazi nai dizuet. Abeslari talde onek nere iritzian, iñork bezin ondo, obeto ez ba'da «*Iru damatxo*» bearrezko kantaldi zoragarria kantatu zuan. Baiñan, zoritxarrez, urrengo zatian: «*Orra orra Olentzaro*» deituan doñuz erori ta galdurik ibilli ziran. Ziñez damugarria Bonifazio Otza zuzendari bikain eta musikari giartsu batentzat. Ertilari aundi dala ederki erakutsi zigun eta abeslari-talde eder baten buruzagi. Ez bear batek ez ba'litu jo lenengo saritatik bat etxeratuko zutela ziur nago. Ori esan nion Otza jaunari, artean ezagutzen ez nuanari. Onela diot berriz, ere, emendik nere agurrik beroena bidaliaz.

Eta bukatzeko, sarigabeko guzioi; edo ta bear aiña sariztatu ez zitunei agur eta diosalik maitekorrena eskeintzen diet. Oles eta Oles zuei oroi! Saririk gabe merezimendu aundiagoa bait duzute. Ez gal ez biotz ez kemenik. Jarrai aurrera! Tolosa'ko Euskal-Abestiaren Irugarren Leiaketan lan ederra egin zenuten Euskal-Kulturaren alde; eta orobat errien anitasunaren alde.

Egunaren aundia bai!; eta sagardoaren gozoa! baiki *IRU DAMATXO* kantaldi alaiez gure gogo-biotzak bete zeniztutelarik.

Eta azken itza EDUARDO MOKOROA tolosar musikari aztu eziñaren izena goratzeko. Gora zu! Eta onekin batera Musika Jaialdi ederraren eratzaille guziak. Esker txarrekoa izango litzake ez esatea.

ANTONIO M.ª LABAYEN

IKASTOLA TA ERLIJIOA

Euzkalerriko Ikastola geienetan (denetan ez ezateagaitik), borroka gogorra ari da, erlijio izena aurrean jarrita.

Puntu au aztertu edo zapaldu esaten diotenak, pentzatzen dute «progresistak dirala». Aurreko lanik ez bagendu bezela.

Pedagoji aldetik daukagun utsuneak ez diote buruko miñ aundirik ematen, eta berdin ekonomi aldeko premiñak ikastolak zabaltzeko eta indartzeko.

Ez dira konturatzen, edo ez dute nai konturatu, oraindikan Euzkalerriko guraso geienak, kristau bidetaz nai dutela umeak gertatu eta ezi.

Iruditzen zait sasi-iraultzailleak besterik ez direla, eta askotan ez jakiñean batzuk alderdi inperialisten jokoari laguntzen diotela.

Orretan dabiltzanari ez diote ajolik erlijioa eman, bakarrik ori elburutzat artu eta euzkaldun artean nai dute naspilla eta borroka jarri, ikastolak lurpera bidean ipiñiaz.

Ordua degu esnatzeko, eta nortzuk diran Euskalerria aurrera eraman nai dutenak, eta nortzuk sasi-iraultzailleak ezagutzeko.

Orreik ez dira euskaldun ezkerrekoak, baizik, euzkal izena agotan eta ezpatarren morroiak baizik.

O'TAR JOSUK

INSALUS
Urik garbiena la osasungarriena

Basauri

SAN MIGUEL

Azkenengoz auzune oneri buruz egin neban idaztitxoa alde oneko informaziño bategaz argitu bearrean nago.

EUSKERAZKO MEZEA

Esan daustienez aspaldian ei dagoz asteko asmoagaz. Orretarako gertakizunak egiten dagozala, apurka-apurka erria gertau daiten, eta laster asteko asmoa dabela.

IKASTOLAK

Oneri buruz esan daustie asi dirala bertako abadeak aurten be kursoa gertatzen eta antolatzen (andereñoak aurkitu, t. ab); lan zailla. Ainbaten, idaztixo au argitaratu orduko asiko ziran.

Asmo guzti oneik auzuneko guztiak alkartuta bete nai dabez, au lortzea gaitza izan arren. Euskalerri osoaren eginbearra da au. Gaur-egun gure erria dagon egoeran ezin ditugu gure indarrak zakabanatu; batu ta alkartu egin bear gara, ez daukagu zeregiñik ostantzean eta. Gure arerioak ori nai dabe; gu bananduten ba'gaitue, irabaziko dabela ondo dakielako. Baiña alkartu, ez geldi egoteko, aurrera ta gogor ekiteko baiño. **Batak-bestearen** jokabideak **onartuaz. Ez da au astiro ibilteko unea; buruagaz bai, baiña ariñ, ezer lortu nai ba'dogu beintat.**

Beste jazokizun garratz batzuk be gertau dira auzune onetan, bertako abade bat dala ta ez dala; baiña ez dot ezer azaldu nai, len dagon atsa zabaldu baiño ez neuke egingo ta.

Idirin'egaz abestu daigun:

«...Elkar zaitezte zaar eta gazte
Ill ez dakigun erria...»

ATANO

Arrasate

BESAIDE

Mendigoizale Elkarte onek gogor jarraitzen du bere euzko-kultura alde. Oraintxe egun eratu du argazki leiaketa bat. Lenengo, bi billera argazki zaleei argazki makiñak zelan erabilli bear diran eta gero argazkiak atera-ta zelan argazki biurtu bear diran. Erakusketa au argazkilari trebeak diran Sologaiztoa'tar Kepa eta Epelde'tar Jon Mikel'en gain izan da. Gauza auek aurrera eroateko ibillaldi bat eratu zuten eta egin ere bai joan zan illaren 21'an; Arrasate'n urten eta Gozamendi baserri ondotik gora Bedoña auzora joan ziran eta emendik Bedoña, Larrino eta Azatza'tik barrena Aretxabaleta'ra jo zuten. Bidean, bertoko basarri eder eta inguruko mendi tontor ugariak argazkiz artu, asmoa dute erakusketa bat egitea eurokin. Oso ondo deritzagu jokabide ori. Batetik jolas atsegingarria eta bestetik gure inguru ederrak ezagutzia ondo baiño obeto. Saiaketa onen eratzailleak geien be gure lagun Urrexola'tar Yosu eta Ansoategi'tar Patxi, izan dira Aurrera beti, gazteok.

ILLETAK

Joan zan Urrilla'ren 31'gn. egin ziran urteroko illetak gure Parrokian orain dala 35 urte gogorkeriz il zituzten 40 erritarren gogo aldez. Jentea erruz izan zan eta apaizak il ziraden izenak esaten zituzten unean negarmalko ugariak ikusi ziran. Jaunak gorde gaitzala beste olako negarkerietatik. Ez dugu iñorentzat gorrotorik gorde gura, baiña ezin aiztu izango ditugu beuren oroizapena. Goian Begoz.

KANPOSANTUA

Arimen eguna zala-ta oste aundia batu zan guretzako gerturik dagon leku orretan eta gure aurretik juanik diran oroitzapenez. Kanposantua ederto apainduta dago eta ia lurrean obiratzeko oitura galduaz doa. Orain geienak orma-zuloetan sartzen dituzte Beste gauza on bat ere nabaitzen da; au da: illarrietan euskerazko idazkun asko ikusten dirala, baiña oraindik euskaldun askok ez diote emoten bear dan garrantzirik. Ea ba-da ez daitela euskaldun sendirikoai beren illarria euskel-idazkun barik agertu.

ERIOTZAK

Bolibar, Ezkoriatza'ko auzoan il da Oianguren'dar Pelix, bere 85 urtegaz G. B. Laguntzen dautsogu atsekabean bere sendi guzñai, batez-ere bere seme eta AGUR onen irakurle leiala dan Anai Rufino pantzeskatar ezagunari.

Baita ere il da Bitoria'tar Jeronima. Lagun dautsegu samin onetan bere seme diran Zeziaga'tar Imanol eta Iñaki'ri. G. B.

SANTOTOMASAK

Ia gañean duguz urteroko jai orreik. Aspaldian ixill samar ospatu dira, baiño aurten aundikiro igarotzeko asmotan gera eta gaiñera euskal giroz. Lotazilla'ren 18 eta 19'an izango ei-da euskal liburu eta kurpil (disco) en azoka. 22'an santotomas bigarrenez beste jai-euskaldun batzuk ere izango ditugu. Aintziñan beste era batera ospatzen ziran: abelgorri azoka eta beste abere batzuek eta gero erromeri ugari illuntzerarte. Erromeri ontan parte artzen zuten, Arratia'ko alboka eta trikitixak, baita Gipuzkoa'ko Goierri aldeko trikitilariak ere. Jendea erruz izaten zan emen ingurutik eta baita urrutietatik ere. Gogoratzen naiz Eibar'ko Lekamendi basarrian morroi nengoala, ango ugazabak oiñez egin zuala joan etorria emetik. Jai onen garrantzia zenbateraiñakoa zan jakiteko esan bearrean naiz Txomin Agirre'k GAROA nobelan aitzen emoten ebala.

SATARKA

Au idazten nagon une berean jakin dut Sagarzazu'tar Kauldi'ren eriotza. G. B. Olerkaritzan goienetako mallan dago eta bere eriotzak samiñ aundia jasoko du olerki zale artean. Orain dala gutxi il zan «Jautarkol» eta ikusten da, tamalez, gure onenak baidoazala. Euren ondorengoak beteko ote dute utsune ori? Oraingo «poeta» berriak-edo?

UMEEN JAIA

Joan zan illan 21'an, «Gurea» antzokian bete-bete zala umeen euskal saioa. Ezin izan nuen bertan egon baiña esan daustenez ikusgarria izan ei-zan. Abesti saioak, bai bakarka eta baita ere taldeka eta ipui kontaketa eta dantzariak eta soiñujolariak ezin obeto danak.

UDALAITZ

Galdakano

SANTURTZE

Arpegiz ezagutzen ez genduan «Biotz Gaztea»ko mendizale bat, Eredia'tar Pernan adizkide ona ezagutzearren Santurtze'n izan nintzan orain igande batzuk. Gazte sindo azkarrai yatorken legez, arrera onez artu ninduen, nor nintzan esanaz batera, «Juan XXIII» txaidean dauken batzar etxe zabal ederrean, bai gazte talde alaiak baita soiñez ain gazte ez dan Lendakari azkarrak bere. Etxe guztia erakutsi eusteen, idaztegia, eusko ikastolarako aretoa, or umetxoei ikastaroa emoten dautse, ta astean birritan edo iru bider beste ikastetxeetara dabiltzanai, eta gabaz, bai nagusiagoei be.

Beste areto baten, eresia ta txistua, bere egunetan, ikastaroak. Eusko abestiak trebetuteko, eusko dantzak ikasteko ta abar, eta zelan ez! baita Batzordea baizartzeko areto berizi bat. Itz baten, sarturtzetar jator orreik larogei sendi alkartuaz egin daben ikastetxe oso bat; ekintza goralgarria. Eusko-etxe ortako areto ederrak, asmakizun berezi baten bitartez, areto zabal andi bakarrean aldatzen dira igandeetan, etxeko gaztedia jolastu daiten, jantza ta jolas garbiekin.

Gure irakurleren batek esango dau, zergaitik edo zertarako dakargun Santurtze aipatzen dogun idazlantxo au. Egia da, guk baiño askotaz obeto azaldu legikean bertakoa dan Etxebarria'tar Juan Anjel euskal idazle azkarrak, baiña bere erriko egiteak goraltzean arrokeriz azalduten dala-edo esan ez dayen, bear ba'da, ez eban ezer idatziko. Baiña gura geunke, ta bear litzakela uste dot, guk esan aal doguna baiño obeto azaldu dayela bere erri maitagarriak egin daben eta egiten diarduan eusko jakintzazko lan goralgarria, ta Euskalerriko beste erri askorentzat eredu izan daiten. Gure zorionak santurtzetarrak! eta jarraitu asi zaren ekintza txalogarrian.

GANGUREN

Ezetariko zalantza barik, «Ganguren»go mendigoizaleak dira erriko kirolzaleen artean eginkorrenak. Eguraldi ona naiz txarra izan, igandero urteten dira mendirantza; oiñez edo euren berebilletan; mordo eder bat, ogei ta amar edo berrogei baita geiago be bakoitzean, jende-berebil andi baten bitartez, jakiña, mendiren batera igonaz. Gu be, noizean bein, beste zeregin askok epea emoten dauskuenean talde orrekin izaten gara, gaztedi sindoaren alaitasuna benetan atsegin yakulako, ta, bestetik, gazte orreik be pozago ibilten diralako noizean bein zarrago bat edo beste ta eurak baiño almen gitxiagokoren bat taldean ikusten dabenean... batzuk pozkiro gitxiago diranei euren laguntza eskeintzeko; baita beste banaka batzuk, zorionez gitxi, euren indarra, abiadak egiñaz, erakutsi nai izaten dabenak. Danetarikoak izaten dira askoren artean: burutsu ibilten dakienak eta Jainkoak emon dautsen kemen ederra neurtuten aleginduten ez diranak, sarritan alperrik galduaz.

Onetariko txango baten Burgos aldeko Berzedo aldera eldu giñan, alboko Aguera ta Sanpelayo errizketatik gora Burgos-Bizkai-Santander arteko muga dan Zalama mendi gaillurrera igoteko. Igoten asi ta laster, edur garbi dizdiratsua zapalduten eta belaunetaraiño bertan sartzen asi gintzazan. Gaitza izaten da atsegiñago, ta ala igon gintzazan goraiño; aize zorrotza zan arren izerdi bitzetan ondo nekatuta, ni beintzat.



Bizkai'ko sartaldean aurkintzen dan mendi au, bere 1335 neurkin goitik, gure lurralde ontako bigarren mendia da; mendi aberats samarra, abereentzat bedartsua dalako bere alderdi bietatik. Ipar aldea dau bizkaitarra, ego-aldea Burgos'ena, ta sartaldea santandertarra. Ikuskizun ederrak daukoz mendi onek, baiña, gu izan giñanean baiño eguraldi obeagaz begiratutzekoa. Ori ta guzti be, mordo ederra eldu giñan gaillurrera, gure argazkian ikusten dan legez.

BASA-JAUN

Zumaia

Gaur, Azillak 21'gna, Gipuzkoa osoan ots aundikoa dan «Azilleko bederatziurrena» bukatu degu. Nai izan duanak komenetzi bikaiña izan du itzaldi ederrik entzun al izateko. Sakonik eta gaurkoagorik ez da erraz izango. Izlari, leen ere amaika aldiz entzun al izan diogun Jesus'en Lagundiko Aita Zubiaga izan degu. Erri onetan txit ezagun eta ixtimatua daukagu bera ta berriz ere etortzeko arren eta arren eskatzen diogu.

Biar da abeslarien Zaindari Aundiaren eguna eta biarko ordez gaur ospatu dute beren jaia. Meza zoragarri bat abestu digute ta gero «Etxe Ona» deritzan jatetxe ospetsuan anai-bazkari bat egitera bildu dira. Beren zuzendari, On Anjel Arabaolaza J. gaxorik zan eta ezin joan al izandu da bertara. Lenbaitlen senda dedilla opa diogu.

Batayo-eguna ere gaur izan degu. Meza banakatan. Erderazkoak amaika terdietan eta amabi terdietan euskerazkoak. Danak amalau izan dira. Euskerazkoak bi geyago. Gure Erretore Jaunak ederki itzegin du, xamur eta goxo, berak dakianez. Onek alaitasun bereizia eman dio erriari ta erbestetik ere arrotz asko bildu zaigu. Jakiña, batayatuberrien sendietakoak geyentzuenak. Zorionak gurasoei.

Uda-udatik, edo-ta uda zirudian udazkenetik, negu-negura pasiak gera. Ez da batere arritzeko ainbat gaixo gripetu errian izatea. Gauza ariña da baiño. Izan ere, emen egon gera S. Martiñ'en «udatxo» zai baiña aurtengoz kale egin digu, arrayo orrek. Gaixorik daudenei aurki erabat sendatzea opa diet.

Poz aundia eman digu zumayarroi Aita Zubiaga argiak bere bederatziurreneko itzaldietan aittatu ta goratu digun erriko alaba Plorentxi Sorazu Aizpurua maitagarriaren berriak. Ez genekigun bere «urrezko eztayetan» geundenikan.

ARRANTZALE

Tolosa

ENKUESTA

Ea bi urteko ixilka lana da nere enkuesta. Irureun gizakiekin itz-egin edo aztertu dut. Nortzuk marxismoaren eragilleak? Nere kontuetan, onela: Marxista batek beste marxista berri bat egiterako:

—Nagusiak, nagusiak diralako bakarrik 0,5
—Nagusiak, zekenak eta bear ez bezelakoak diranean 7,0
—Apaizak, txepelak diranean 0,5
—Apaizak, «retrogadoa» dala esango dioten edolako «konplejoaz» «progresista» azaldu nai dutenak 113,0
—Apaiz-gai izandako «akonplejatuak» 37,0
—Gaiñontzeko gizaki motak, guztira . 17,0

MUNITA'TAR IÑAKE (G. B.)

Maixtra. Gero, Ikastol Andereiño. Euskal idazle trebea. Abertzale sutsua. Batzokiko antzeztaldean tarteko genuan eta berarentzat izan oi ziran lenengo paperak. Berarekin lan egin bear genuantzat, guztiz atsegiña. Gure guda aurretik Jainkoa'ren deia entzunik, monja sartu.

Oraindik gazterik Txina'ra joan zan. Emakumearen Irakaskintzan arduradun izan zan. Pekin Nazio-arteko Izkuntz Irakaskintza berak zuzentzen zuan. Txinar izkuntza emen ikasten zuten monjak. Eta bera izaten zan bitarteko itzultzaillea.

Komunisten jabetz egun zailletan, bere Kolejioaren zuzendaria zalakotz, giltzaperatua izan zan. Aurkalari bezela salatua, eskatu ere egin zioten eskatu zezala «bere gogoz aldegin nai zuala». Gogorki ukatu zanez, azkenean bidali. Emendik, Japon'era, Sorkaldeko Misioen Ama Nagusi bezela.

1945'tik Erroma'n. Bere jakinduria eta balioa agertzen ditu Kongregazio Bikaria Nagusia bezela.

Eta emen il zaigu, jainkotiar bizitz bat eraman ondoren.

Gogoan ditut, antzerkien ikasketetan eta saioetan bere par algarak eta alaitasuna. Zintzoa, leiala eta lagunartekoa izan zan lekaime izan aurretik. Jatortasun berbera agertu du erlijio bizitzan. Iñake'k, zegoan tokian zegoala, euskal aldizkarien bizitza jarraitzen zuan, euskera maite bai-zuan.

Bijoakio nere oroitzarekin nere otoitza.

FATXISTAK

Omen gera «Agur» ekoak. Geitxo mintzatzen dira onela, eta, gure belarrietara etorri. Jaun batek emen: andereiñoi, an. Konsigna baten abortua. Baiñan esaidazute kofradiko kandela jasoko duzuten jauntxo berriok, ori demostratu bear izan zan egunean zuek «an» izandu al ziñaten? Nortzuk ba...?

«AMATIÑO»K EZ DAKIANA

«Zenbat geran» emana. Z. A.'k aste batean; errietako berriak amaikatik amar euskerantoan emanak izan dirala. Eta pozten da erri oietako bat Tolosa dalako. Eta izeka ere ba-dagi, «zeren» ori gertatzea «euskera pollita» egiten dan errian...

Nik dakidanez, eta Amatiño'k agian ez, Tolosa'k bost seme ditu euskaltzain, eta bostak «euskera pollitaren» maitaleak. Ortik aurrera, idazle geienak, danak ez esatea gatik «euskera pollita» orren jarraitzailleak gaitu, zu. Beraz, ez bedi arritu «invasión cultural»eko bat erbestetik etorri bear izatea gerta leikela «huelga de haches caídas» onetan idazle esquirol eginkizuna betezeko.

Nik adieraziko nioke zer ondoren ekarri dion Z. A.'ri «euskera pollita» baztertu eta euskerderazale egin danean. Arpidetza nola? Kalean salketa? Amatiño'ri atsegin ez zaiolarik etxeko trapu zikiñak argira azaltzea eta, berarenganako begirunez, ez bestegatik, ixildu egiten naiz. Alare zenbaki argi eta zeatz batzuek jakin naiaz baldin ba'dago, esan besterik ez du, ixilka bidaliko dizkiot-eta.

Tolosa'ko «euskera pollitean» esana.

ONGI-ETORRI

Arjentina'n ia ogei urte egin ondoren, pozez agurtu dut errikide dan eta ezpatadantzari lagun izandako Artolazabal eta Txintxurreta'tar Ilari. Erabat etorri da eta Zornotza'n jartzen zaigu bizitzen. Bejondeikela lagun!

LANTEGI BAT IXTERA

Tolosa'ko «La Papelera Española» ixtera dator. Zaarrei zaarlansaria edo jubilazioa eta gaztei Bizkai'ra eta Errendi'ra joan edo diru laguntza bat aukeran jarri zaiote. Onelako batean bi bider gelditu nintzalako ba-dakit egoera onen berri. Langille gizajoak! Eta zer egin, gure eskuetan ez baldin ba'dago auzia?

UXOLA



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zikindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01
Gordoniz 44 **BILBAO**

GAZTE

IKASTAROA

Lege barrian murgilduta gabiltzala esan bear, ez daki ba iñork ur barri onetan nola egin bear dan igeri, eta dana asmaketa utsa dala dirudi, aurrera jo geldirik ez geratzearren. Ortik naspillak.

Or eta emen ez dira ikastaroak osorik beteten. Orain Economicas diritxoena itxi dauskue. Lenengoetan irakasle bateri eragitearren bigarren urtekoak geratu ta besteak be beste ainbeste. Orain, eurak, irakasleak geratu yakuz, ta ikastolea itzi dabe.

Laster Gabonetako opor-aldia datorkigu. Urtebarritan bizitza barria. Olan izango ete-dogu!

Bitartean, eta al dan neurrian, Zorionak danori.

IKASLE

EUSKALDUNOK: ALKARTU GAITEZEN!

Gaurko euskaldun asko banatuta dabiltza. Eta berexketa edo «separazio» ori, euskal gazteen artean ausnartzen da batez bere. Bai, burruka ta berexketa itzelak gai askotan: bai euskerearen eztabaida gogorretan; bai linguistikako arloetan; bai ikastolen kontuetan; bai siñesmeneko epeltasunean... eta abar.

Eta olan jarraitzea ezin dogu onartu, ori gure Erria ez maitatzea dalako. Ez da asko adizkide batek, erdalduna bera, esan eustala: «Ez dot ulertzen euskaldunai jazoten jatzuena. Beti gitxi izan zaree, eta beti bata-bestearen aurka zabizie. Olan ez dozue aurrerantza aundirik lortuko». Eta, egia esateko, adizkide onen itzak errazoi aundia eben. ZERGAITIK OLAN BIZI?

Euskaldun guztien alkartasunaren ordua eldu da. Ba-dakit «unibersalak» izan bear gareela; baiña lenengo gure Erria osatu ta alkartu bearko dogu.

Beti atzera begiratzen gelditzea ez da gauza zuzena, etorkizun paketsu bat gura dogu gure Erriarentzat. Euskal Erri barri bat nai dogu lortu... BAIÑA ZELAN, BURRUKA ONTAN BA'GABIZ?

Ez, gazte, orain enaz gorria edo zuria; orain enaz H zalea edo H'ren aurkaria; orain enaz ezkertarra edo eskumatarra; orain ez dot talderik... ORAIN, GAUZA GUZTIEN GAIÑETIK, EUSKALDUNA NAZ!

Eta euskaldun lez, euskera maite dot eta euskal gazte guztien alkartasuna gura dot. Ez geiago burrukarik! Ez geiago zalantzarik!

Ba-dakizu, euskal gazte. Gure arteko tarte guztiak lurreratu bear doguz. Eta ori ba-dakit ez dala ain erreza. Nork bere besoa okertu?...

Alkartasunak indar asko emoten dau, eta guk ez dogu ikusi nai indar ori: BEARREZKO INDAR ORI!

Bai, egi tamalgarria... «beti gitxi ta beti burrukan». Baiña olan ezin dogu jarraitu. Bakotxak bere bidea zuzendu dezala! Ez litzake zuzena izango EUSKALDUNAK deitzea ta gure Erriaren aurka jokatzea!

Askotan ikusten dogu, gure arteko alkartasuna eskasa dala; eta ez gara konturatzen gure areioak ori nai dabela. Erromatarrak esan eben lez: BANATU ETA IRABAZIKO DOZU.

Euskaldunak bata bestearen aurka dabiltzan bitartean, gure euskerak ez du eukiko etorkizun argirik. Ez orixe!

Gure artean dogu gordairurik ederrena: EUSKERA. Eta gordairu edo «tesoro» ori danontzat da. Euskera, euskaldunarentzat da. Zertarako ba ainbeste eztabaida?

Ortik esan da, nik be entzuna dot, gure Erriko etorkizuna euskera barik be lortu lezakela. Baiña nik ez dot ori siñesten. Zelan biziko da lora bat eguzki barik?

Eta bardiñ beste gai ta arlo guztietan. Batasuna nai ta naiezkoa izango dogu. Eta gure alkartasunaren ordua eldu jaku.

Ia ba, euskaldun guztiak! Lenbailen eta gure Erriaren onerako: ALKARTU GAITEZEN!.

ESKAURIATZA'TAR XABIER

KONDAIRA TESTIGU

Gure bizitza oso tikia da. Tikia eta motsa. Gure bizitza kondairaren zati bat besterik ez da.

Gizon bakoitzak idazten du bere bizieran, kondairaren apurtxo bat. Gizonak bere lerroetan idatziko ditu, era guzietako ipuiak. Ipuiak, baiñan egizkoak; berari gertatutako edesti guztiak. Garratzak eta goxoak, pozak eta kezkak, borrokak, estuasunak, negarrak, lanak, ekintzak, arkituko ditun lagunak eta etsaiak; aita, ama, anaiak...

Kondaira izango da gizonaren testigu, guztiz errespetagarria, bertan arkituko diranez, gizon guztien lanak.

Guk, euskaldunok, zer idatziko ote degu gaur egunean?, zer jarriko ote degu, kondairak eskeintzen digun lerroetan? Zatituta gaudela, gorri biurtu gerala, demokraziaren izenean itz egin, eta gero gogorkerian jarraitzen degula? Zer idatzi bear degu euskaldunok, zer, zer, zer?

Euskaldun gerala, euskera maite degula?, gure lurra, oitura, erlijioa, kultura zainduko ditugula?, eta batez ere, euskal langille borrokalaria, naiz zaar eta gazte, gure lagun degula?

Zer idatzi bear degu, zer, zer, zer?

Une bat, naikoan izaten da, zerbait pentsatu, aztertu eta ekintza bat egiteko.

Guztiok, damakigu, gure bizkar gaiñean, bear bat, eginkizun bat, lortu bear deguna, gure erria. Ez dezagun bera engaiñatu. Gezurrak gizonak naastuko ditu, baiña beti agertu oi izango da kondairan zear, gezur ori, engaiñu ori. Zertan geio jarraitu? Bukatu egingo det exenplo batekin.

Oraindik denbora asko ez dala, euskal-idazle bateri gertatua. Berak agertu zun liburu bat, gerla zelarik bide, eta bertan agertu zun bere jokera eta bere inguruan zegozten guztiena, jokaera garratza, gerla bera bezelaxe, baiñan egitasunez beterik.

Gauzak orrela agertu zituelako, kobardea deitu zioten. Neure galdera: nor da kobardea, egia esaten duena ala gizona engaiñatzen duena?

RAMON ZAPIRAIN

EGOAMERIKA'KO IKASLEAK

Onela mintzatu dira Teize'n 40 lurraldetako 7.000 gazte:

«Ez dogu gorroto gurarik; zerbait egin nai dogu: sortu-erazi. Mundua aldatu nai dogu. Gaitza ba'da; ez dogu zurituko geure burua; geu be errudun gara.

Gauza bat aitortu bear dozue: zapaltzailleak zareela; ba-dakizuela edo ez dakizuela, anaia zapaltzen zabiltze aspaldi baten. Danok aitortu bear dogu au. Kontzientziak berak diñosku. Ez dagigun ba jarraitu gizona zapaltzen. Munduaren jokereak berak menderatuta gagoz guztiok. Zoriontsu zagizen edo egiten zaituen irabaziak, gu menderatu gagiz.

Naimena ta maitasuna bide jarri bear doguz, gizartean beste jokabide bat sortuerazteko. Egoamerika'ko toki askotan 27 urtetako bizia dabe gizon-emakumeak, bataz beste. Larogei milloek ez dakie ez irakurten ez idazten. Ez-jakin utsak dira. Txbola zar-utsetan pillotuta bizi dira milla ta milla. Jaioten diran millana umetatik 600 lenengo urtean ilten dira.

Edozenbat iltea ez daukagu ontzat. Zuetariko asko lo dagozala-ta gagoz. Emen diñoguna ez da zuek egia ikusteko eran itxartu-erazteko naiko. Gatxa da politika agiri-eraginkor bidez jokatu nai ez dauan Elizan siñistea. Askatasun-naiak politika-ekintza esan nai dau, gizona zapaldu daroan jokabidea bait-da».

Itzok ez dabe azaldu bearrik. Argi be argi dagoz. Bakoitzak gogoan artu ta ausnartu beiz.

GOIRIA

DRINGILIN DRON GAUR GABON

Dringilin dron gaur Gabon.
Gau luziek, egun laburrek;
goiko mendietan edurra, errekaldietan izotza. Negua.
Izar barri bat sortu ei da. Gabon.
Maitasuna, alaitasuna, poztasuna ei dakarrez Gabonak.
«Dringilin dron
Gaur Gabon
Sakela betea daukat eta...»
Sabela... edo zizkua betea?
«Txin txin, txin txin
Txindiaren otsa
Arek emoten dau, maitia,
Biotzean poza...»
Txin txin; bi lansariko illea, 22 eguneko zozketa nagusia: danok dirudun.
Dendariek zai ta adi; erosi ta saldu. Danok irriparrez.
Kale guztiz argitsuek, dizdizka; Gabon abestiek eta «zorionek» edonun. Gabon txartelek eta bezuzek...
Maitasuna?
«Dringilin dron gaur Gabon
Sabela betea daukat eta
Besteak or konpon...»
Or konpon; irriparra azalean: zer barruan?
Kale nagusiek, argia zugatzetan; alderrietako kalietan atarietan be ez...
Kale batzuek garbi ta eder; alderrietakoetan basa, zaborra, odietako txiperrek, urek egindako zuloek, ta etxietan urik ez...
Or konpon. Oñaze biziaren aldarri zoliek entzun ei dira; ango lurraldietan zupiñek eta izkilluek jo ta jo... Geuri zer? Bestiek or konpon-ta...
Nortzuek bestiek? Geure etxetik atekoek, geure erritik atekoek? Etorri bear izan diranek, juan bear izan diranek? Gu, euskeldunoik, geure sabelek beterik, bestiei «or konpon» dirautsegu?
Gabonetan, alkar-maitasunarena ei dan aldian, bestiei «or konpon» esan ete giñeie guk?
«Gabon gabian oituten dogu
Guztiok apari ona
Bixigu, lebatz, makallao sal-
(tsa...»
Antziñako euskeldunek gosete andiek jasan ei ebezen; makalloak atara ei ginduezan gosetik. Eta aldi areik gomutatuaz, oraingoetan bazkari-apari on-onek egin ei daroaguz: «danian bonbon, eztaunian egon».
«Iru ortzeko tresnatxo batez
Morokil-ore bailitzan
Ezti lapiko aundizko bati
barrua uts-uts eiñ neutsan...»
Eusko gogoa goserik da? Zer egin leike erri batek bere gogoaren sabela betetzeko?
«Gero txurrut plin plan
Ardao ta paitarra
Katuak artuta
Zabu-zabuka...»
Edan daigun, ba, zarrazarra: uiskia, koñaka, txanpaña...
Euskalerriko ordia, Moskor-erria. Len gizonek bakarrik; orain, emakumien azkatasuna ta eskubidiek gizonkeriakaz batera nastu dauzta, or emakumiek be dangadanga. Ekin ardaoari guztiok, katuek artuteragiño, ekin... Euskalerri txikia izanik, edanaz nunbait ezaguna; arlorik geyenetan alperra, ardaotan irabazlia bayetz.

Antziñan erri guztiek ospetu ei daroez Urte Barria, auxe da, urtean gaberik luzienaren osteko (Gau on) Eguzki Barria (Eguberri); jai-gau aretako janari-edariek, jantza-oyuek eta...! Eta ontxekoek jakintsu okituek eta ezin barrizaleagoek ba' gara be, gure aurretikoen antzera gabiltz orretan: izenek aldatu, izanek bardiñek. Josutxu Umeak andra-gizonei zerutiko gogotasuna ekarri ba'euskun, guk susmau be ez...

«Trakatan, trakatan Iru
(Errege
Trakatan, trakatan, Belen'
(era...»

Iru Erregiek; edo St. Klaus: Erdeldunen irudiek: jauregidunek, aberatsek, morroi askodunek, geuri bezuza oparo be oparo etxeratu daiguzan. Erderaz eta erderazalekeriz apainduriko Euskalerri onetan, oraingo Gabonetako irudi salkorrek.

Olentzero; ikazgiña. Ikatza, antziñako olaetarako ikatza, geure mendien oyanetako zugatzakandiko ikatza. Mendian bearrean iñarduala, Josutxu Umea jayo ei zala entzun, ta laister ibarreko errira jatsi ei jakun, A agurtu ta gurtutera.


Olentzero langillea, baserritarra, euskelduna; txabola baten bizi, aize zabalean lan eta lan. Euskalerri langilleak eztakigu zetarako edo no, rentzako lanpetua; Euskalerri uri andiegikoa, edo auzune txirokoa; ogeigarren gizaldiko ugaritza jarioan sartutako Euskalerria, egundoko letz lander eta gizajoa.

Olentzero, benetako Euskalerriaren Gabon irudi benetakoa.

* * *

—Eup, Olentzero,
«Biotz sutuaz
Belen'a goazen
Aingerua dago
Ara gu deitzen...»
Belen, nun dago Euskalerriaren Belen? Urian, baserrian, eleizan, dendean...? Eta nun Dabid'enekoek gutarren artean...?
Nok ulertu Gabona? Olentzero'k, Iru Erregiek, Sta. Klaus'ek...?
Neure iritziz, Jayaren bateko gau ona, artu dogu, bai orixe: ordea, ez Aren Gabona, Aren Jayotza... Zeu baña, Josutxu ume orri, etzaitugu ulertu, ez orixe: gizonduko zaranean danok gurutzeratuko zaitugu-ta...
—Eup, Olentzero,
«Gabaren erdian
Zeru garbian
Eguzki Barri bat
Agertu da bart;
Miren Birjiña
Da zeru garbia
Josu jayobarria
Eguzkia da...»

Arriortua'tar Ander'ek



AGVR

II URTEA
27 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1971 - LOTAZILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

EPAIAK

Gizonen artean zuzentasuna egitea ez da gauza erreza. Oso gatxa da.

Zergaitik ori?

Epailari on batek jakingarriak argi eta garbi artu bear ditu. Baiña zenbat guzur eta naste jakingarrien artean. Ziñeslariak egia esateko zin egiten dabe eta geienetan, sarritan beintzat, zin ori ez dabe beteten.

Iñoz jazo leiteke epailaria bera be gorrotoduna edo epaituren arerioa izatea, eta orduan oso gatxa izaten da epai zuzena emotea orretarako bere aldetik gurari bizia izan arren.

Eta epailari-epaituen artean gorrotorik izan ez arren, eretxi ezbardiñak izatea naikoa da zuzentasunak bere argi bizia agertu ez dagien, batez be gizonak ainbeste sututen dabezan erri-arazoetan izan daitekezan eretxiak.

Astuna ta gatxa, benetan, epaikarien egin-bearra.

* * *

Epaikariak alderdigabekoak izan bear dau, «inparziala» bere egitekoan.

Epaitu bear dauen gizona bere adiskide ba'da, nekez zuzen jokatuko dau. Berak igarri barik, barruak onelantxa eskatuko dautso ta, epaitu bear dauan adiskidearen alde egingo dau.

Bardin arerioa ba'da be. Berak igarri barik, arerioari zigor aundiagoa ezartera joango da.

Txarrago, esan bearrik be ez dago, senide ba'dira biak, edo irabazbide bardiñetan dabiltzanak. Oneik, euren irabazbidea ondo ibilli daiten alkarreri lagun egingo dautsoe.

Baiña ez da obea izaten burruka baten edo guda baten alkarren arerio izan diranak auzitegian alkarren aurrez egotea. Orduan bai zuzengabekeri ikaragarriak egiten dirala. Burrukea edo gudea galdu ebanak irabazi ba'leu epaipena oso ezbardiña izango zan; epailari zanak zigorra eta zigorra artu ebanak auzirik ez

Epailariak askatasun osoa bear dau ba. Lenengo bere barruan, aurka ez alde, barruko eskabide barik izanez. Eta gero kanpokoa, ezelako indarkeririk epaipena dala ta, izan barik. Ba diñot barriro be, ez da erreza.

*

Eta oindiño beste arazo gogor bat be ba dau epailariak. Legeen arauz epaitu bear dau. Baiña legeak zuzenak ez ba' dira zer? Esaterako, eta urriñera goazen, Erroma'tarren denporako legeak, ugazabari bere menpeko gizona ilteko eta jaurleai kristiñauak ilteko agintzen eutsen legeak.

Orduan zer egin bear ete dau epailariak? Lege zuzenak egiteko alegindu, jakiña. Baiña ori lortzen ez ba'dau? Lege okerraren arauz ezin legike iñor epaitu, ori egin baiño lenago bere epaikaritzea itzi egin bearko leuke. Bere barruak eskatzen dautsona, legeak baiño lenago bete bearko leuke.

* * *

Edozelan be, beti izan dira utsak gizon epeikarien artean, eta izango be bai gizonak gizon diran artean. Eta epaipenak beti ziurtasun osorik bakoak diran ezkero, iñoz ez leiteke eriotzarako epaipenik emon bear. Bein gizona il ezkero ez dago atzera egiterik, kalte ikaragarri ori osatu eziña da.

Azkenez, zuzentasuna berez ain gatxa dan ezkero, maitetasunaren maitetasunez berotu bear da bere oztasuna, errukia lagun izan bear dau.

Zuzentasuna ta maitasuna besarkatzen diranean, mundu barrirako oiñarri on bat ipiñita agertuko da.

AGVR



Etxerik bakoen Gabon-zarrak

BENGALAKO ERAILKETA AIEN ONDORENA

Orain arteko gudaketak naikoa ez dirala, orra or, berriz, anai arteko burrukak. Anai arteko diñot, baiña ez det uste orrela danik. India'ri inglesak askatasuna eman ziotenetik, laterri aundi ura puskatu zuten, arrezkero ez da izan lur aietan bakerik. Bitarte orretan alkarren ezin ikusiak eta zalapartak unero izan dira.

Dakigunez, Pakistani bi puskatan sortu zan. Bi alderdi oiek oituraz ta arrazaz ezbardiñak dira. Olako zerrikeriak munduak anitz ikusi ditu; zatiketak egiten diranean bakoitzaren eskubideak ez dira aintzat artzen. Begira egunotan nola geratuak dauden Europa'ko lurraldeak: Polonitar batzuk, gogoz kontra, errusitarrekin bizi bear; Alemanitarrak, polonitarrekin; Lituani, Letoni ta Estoni'koak errusitarren azpian. Zergaitik orrelako ezbardintasunak? Azkenengo gudea irabazi zuten jauntxoak lapurtu zituztelako.

India'ri orrelako gertakizunak sortu zitzaizkion. Ez ordea auek guda baten ordaintzat. Sortaldeko Pakistani zatitik sartaldekora milla ta bosteun kilometro dira, ta India aundia bitartean. Sorkaldeok ordea, ez dira pakitasnitarrak, bengalatarrak baizik. Azken-botazioetan, auek, bengala-zale bezela, geienak izan ziran, eta sartaldekoai onerako izan ez.

Sortalde orretan nola sartaldeko gudariak dauden, irakurtzen ditugun zapalketak izan dira, irureun milla biztanle eraillaz. Ez dago berri mingarriagorik. Sortaldekoak, esku-utsik ezer egin ezin... ta orra ondorenak.

Bengala ortan lur-jabeak une artan sartaldeko Pakistani'kin batzeko erabagia artu eta ez legez egin bear zana egiteko, au da: Bengala aberria sortu. Baiña erabagi ura atsegin izan ez eta arreskero sortu dira ezbearrak.

Erria, gizajo bat besterik ez da; gosea ugari ta txirotasuna nagusi. Beste orren aurka ezer ezin egin, buru makurtu ta menpean apal-apal bizi bear, naizta biotz barrenean irakiten euki odola. An ziran ingeles batzuk beren aberrira eldu ziran. Euretariko batek, Mrs. Heatvood'ek, berri ikaragarriak eman ditu: nola tiroka erail zituzten millakak. Berak ikusitakoa esan du.

Zer egiten du munduak? Zertarako ONU ori? Nere ustez, ezertarako ez dago. Mr. Murphy'k ere esan du berak ikusitakoaren berri: nola 250 erail zituzten, eta eskerrak berak Union Jack'en ikurriña atera ta deardaka ingelesa zala esan...

Vietnam'go gudan gertatzen diran gora-beren berria emoten asiko ba'nintz, gertakizun tamalgarriagorik ez litzake idatziko. Egipto'n, Israel'en eta Jordania'n t'ab. gertatzen diran erailketak ere, mingarriak dira. Irlandakoak be negargarriak. Begira Calley tenienteari. Iparameriketa'tik irtetzen duten gudariak lenen ikasten duten ikaskizuna arerioak iltzea da. Etsai ori, une latzean, ez dute begiratzen zein dan: gizona edo emakumea edo-ta umea. Tiroz guztiak josi ta kito, berak il baiño len. Gero zer? Baten bati errua eman bear-eta, erriaren aurrean aitzekitzat agertzearren, buruzagiak epaitu. Ta nik galdetzen det: Zer egin lezake gudari batek agindua bete ezik? Agindu ori ez ba'du betetzen, gero epaitzeko arriskuan izango da. Gudariak ortarako gudaratzen dira, besteak iltzeko eta ez berak iltzen uzteko. Calley orren agintariak ez ote dute errurik? Ori da errezana, baten bati errua eman, bere agintariak Pilatos'en antzera geraturik...

Noan nere gaira. Pakistani'n zer gertatuko da. Guda, noski, India'k ez dio utziko besteari nai dutenik egiten, ta laguntzen asiak dira. Ta zer egiten degu guk, gudarik ez dan bitartean? Jaramonik egin ez, eta kito. Gure gudaketan besteak egin zuten bezela: Besteenak orkonpon, esanik, berriak irakurri. Norbera ondo dagon bitartean, zergaitik jaramonik egin. Urte asko ez dala, Europa'ko guda gogorrenean zegoala, Ameriketako erridi aundi batera gizon jakintsu bat eldu zan, ona ta zintzoa, J. A. A. bere izen laburpena. Onek itzaldi baten au esan zuan: «Ludian maitasun krisis aundia da...» ta abar. A ze nolako egia! Maitasunaren oztasuna daukagu guztiok. Maitasun gabeko gizona, naiz kristau agertu, gaiztoa, piztia, zitala besterik ez da. Maitasun gabeko oien menpeko dauden gizajoentzat ez da errukirik izaten.

E. OZKIN

Oarra.—Idazlan au, zerbait luzetxoago, aspaldi gendun eskuartean, baiña gure tokirik ezak atzera utzita, gaur gaurkotasunez betea dalako agertzen degu. AGUR.

ZAPALTZAILLEAK

Arrain aundiak txikia irunsten dauan lez, erri aundiak txikia zapaltzen. Orra or mundu oker onetako bizitza-legerik zabalduena. Erri zapalketa ori, ikusten dogunez, era askotakoa izan ledike: ekonomi maillakoa, kultur saillekoa, gizarte aldekoa ta abar... orain, «inperialismo» izenagaz ezagutzen dogun erri-eskubide zapalketea.

Sorkalde eta sartaldeko laterri aundiak, batak besteari jartzen dautsa izen «polit» ori, baiña ez da politikan larregi sakondua ta landua izan bearrik, bai batzueri ta bai besteeri ondo dagokiela ikusteko. Ego-ameriketa, Korea edo Vietnam'engo egoera itunak aztertuta, amaika bider entzun doguz iparramerrikarrak salatzen ta inperialistatzat botatzen... errazoi galantagaz gaiñera!

Baiña egun oneitan, aspaldian lapikoan egosten egoan beste guda zital bat be sortu da, Pakistan eta India'ren artekoa, bengali gizajoak bitarteko dirala. Guda barri onetan iparramerikatarrak ez daukee, aurki, zer ikusi larregirik... ala bai? Gure ustez, danak zeozer, baiña ez Errusia'ek eta Txina'k aiña.

Bangla-Desh'ko abertzaleak gogor diardue aspalditik euren Aberriaren askatasun alde. Pakistantarrekin erlijio batekoak izatea ez da lokarri alkartugarria izan; enda edo arraza, izkuntz, giza-lege ta abar, oso ezbardiñak dituez eta orreik izan dira askatasun-eskubidearen oiñarririk sendoenak.

Baiña ona emen Txina'ko komunisten «inperialismoa»! Pakistan zapaltzaillearen alde, Bangla-Desh'eko abertzaleen aurka, osoosoan jarri dira. Burgesak ete dira ba goseak ilten dagozan 60 milloi bengalitarrak?

Lerro oneik idatzikeran ez dakigu guda orren amaia zelakoa izango dan, ezta Bangla-Desh'ko erriarentzat nolako ondorenak izango diran... gu baiña, erri orren alde gagoz; errimiñak eta giza-legeak ori eskatzen daskue-ta.

Urrun dago guda ori; ona, telebisioko irudi negargarriak eta eriotz albiste itunak baiño ez yakuz eltzen... baiña ez dira guretzat eredu txikidunak. Albiste orreik irakurtzeak erantzun mordoa dakar nere gogora. Adi bidez:

Gogorkerizko agintaritzak —diruaren edo talde baten eskuetan makillea izatearenak— naiz kapitalista naiz komunistea izan, laterri aundikoak ba'dira, txikiak «inperialismo» pean zapaltzen dituez.

Erri ezbardin bi alkartzeko ez da erlijio bardiña izatea bear dan aiñako lokarria, lokarri makala baiño. Kondaira, kultura, izkuntza ta giza-legeak dira askatasunean alkartasuna lortzeko giltzik egokienak.

Erri txikien edo atzeratuen bizi-naia ukatzen daben laterriak, sorkaldeko sozialista ta sartaldeko kapitalisten artean dira. Diruaren indarra, ekonomi norberekeria da, beste iritzi ta elburu guztien gaiñetik jartzen dana. Janarien eta langaien ordez, guda-izkilluak saltzen edo sartzen jakez.

Maoismoan siñesturik ago-zabalik dagozan ameslariak ikusi legikee Bangla-Desh'ko abertzaleeri zer «eskeintzen» izan dautsen «Mao Eguzkiaren» jarraitzailleak. Ala «bardintasuna» sartu ondoren askatasuna emongo dautsela barriro be iruntsi bearko ete dogu? Bengalatarren artean ezbardintasunik bai ete? Arta-garau aundiegia gure iztarriarentzat!

Eta abar, eta abar... Bitartean gosea, odola, negarra ia mundu guztian, Urtebarri onen atarian, ta auzora begiratu ezkero, zenbat ikasgai, ikasi nai dauanarentzat!

Amaitu baiño len, eta ez dot praille-sermoilariarena egin nai, Urte-barri on lagun guztiori. Nire iritziko ez zarien borondate oneko errikide guztiori be bai; gure arteko zuloa leizea egin baiño len, urrun dagozenen oorez, nere eskeintza zintzoena: Bota zuen bosteko ori ta jarrai egizko errigintzan, euskal errigintzan!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

ITAUN EDO GALDERAK EUSKERAZ

Euskal gramatikeari (zer-edo-zelan esatearren) ikutu egiñaz diardugun lanari jarraituaz, gaurkoa, itaunari buruzkoa izango da.

Itaun era bat egiteko AL itz atala edo danadalakoa erabilten dala danok dakigu. «Ama etorri al da?»

Bateri baiño geiagori irakurri izan dautsat, zera, bizkaieraz AL ez dala erabilten.

Au diñoenak ez dagoz zuzen. Erabilten dogu AL ori bizkaitarrak, ondarrutarrok bai beintzat, eta ez dot uste gu bakarrik izango garanik. Guk, itz ori tartean dala, egiten dogun itaunak batzutan gipuzkoarrak emoten ez dautsen beste esanaia eukiten dau: Gipuzkeraz, bai **edo** ez **erantzuna dauken itaun guztietan AL sartzen da.**

Zu eskondua al zera?
Arantza, nere liburua berria al da?
Mirentxu, menditik etorri al zera?

Guk, igarten emoten daben zerbait danean edo «ebidentzia» dagoanean AL sartzen dogu itaunean. Ara zelan:

Nire andrea egun batzutarako kanpora joan da. Eguerdian etxeratu nazanean biderako eroan dituan gauza batzuk arkitu dodaz, ta andrea, uste barik, etxera biurtu jatalakoan alabari itaundu dautsat: «Ama etorri al da?» «Bai, etorri da».

Olakoxetan, zerbait igarria dagoanean, soillik AL erabilten dogu. Gure olako itaunetan itxaroten dogun erantzuna izaten dogu geienetan. Ara beste adibide bat:

—Mirentxu, abesten zabiz; ez al dakizu amona il dana?
—Amona il! Ez nekian.

Gipuzkerazko dialetoan, batzutan, AL tartean daben itaunen erantzuna bardin izan leiteke BAI edo EZ.

—Biar gabean ikastolara al zoaz?
—Bai (edo, Ez).

Guk olakoetan ez dogu AL sartzen.

Guk bizkaitarrok AL lez ALA be erabilten dogu, biak esan nai bardiñagaz; Sintaxis desbardiña dauke. Lenengoa aditz laguntzalearen aurrean ipinten dogu ta bestea atzean.

a) **Ama etorri al da?**
b) **Ama etorri da ala?**

ALA au jatorriz konjuntiboa dala iñoiz irakurri izan dot.

«Ama etorri da ala?» itaunak beste onen esanai bardiña daukala, «Ama etorri da ala ez da etorri»?

Nik ez dakit bere jatorria nun daben, baiña esanai desbardiña dabena agirian dago. Azkenengo esaldi onetan ez dago ebidentzi apurrik be; ta ALA erabilten dogun goragoko esaldian eta antzekoetan bai.

Itaunetan erabilten dogun beste itza ETE da (OTE gipuzkeraz).

Ia ia itauna ez dala esango neuke; beintzat gure jakin naia argituko dauskun ustean ez dogu itaun ori egiten, ezingo dauskuela erantzun dakigula egiten dogu-ta. Ikusi daigun:

Lagun bi mendira irten gara erloju barik. Ta ibilli ta ibilli aldi luzea igarota, ez dakigu zer ordu dan ta diñotsat lagunari:

«Zer ordu ete da?» Ez dautsat itaunduten «Zer ordu da?», berak be ez dakiala ba-dakit-eta.

Erderaz be olakoetan ez dogu esaten «¿qué hora es?», «¿quién ha ganado?», beste era onetara baiño, «¿qué hora será?», «¿quién habrá ganado?»

Gramatikalari guztiak beti ez dabe ondo artu ETE onen esanaia. METODO GRADUAL PARA APRENDER EL EUSKERA liburuan olako esaldi asko daukaz:

Zenbatzuk-ete dira ogei ta ogei?
Zer-ete iñuan Kepa'k?
Nun-ete daukazu, ba, nire kapelea?
Gomutetan-ete dozu atzokua?

Esaldi oneitan ETE bearrik ez dago, beraz txarto dagoz.

Beste itaun era bi be ba-dagoz. Bat, itauna dan itza sartuaz izaten da:

NOIZ etorri zera? NUN bazkaldu dezu? ZELAN etorri da?

Itaun era onetan ez dago zer esanik edo irakatsirik.

Beste itaun era A'gaz amaitzen dabenena da: «Ekarri duzia?»

Bizkai ta Gipuzkoa'n itaun era au ez da erabilten (Ondarrabia'n zerbait bai) ta zelan dan garbi ez dakit. Beraz bakean lagatea obe.

Ta beste barik amaia emon deiodan neure lanari.

KAMIÑAZPI

ALKARRI IDATZIAZ

Ez dakit nundik eta nola neure eskuetara etorri dan aldizkari au, baiña iduritzen zait bilbotar gazte batek egin zidan bizita baten bitartez jo duala. Arek esan zidan euskaldun berria zala ta aitiarenka geratu nintzan ain ondo ta garbiro itz egiten zualako. Eta zergaitik ez esan: nik artu neban lotsa ta barruko miña. Ai naiz euskeraz idazten eta-ziur dakit oker eta txarto egiten derala. Au lotsa nerea! Baiña ontxe arte, neure aurtxoak koxkondu arte, ez naiz konturatu eskuetan zer neukan eta nire erruz galtzen ari nintzala, diñot, geure Euskara zoragarria.

Nere artu-emanak diala-ta, alderdi batera utzita neukan ainbeste garrantzi daben gure izkuntza bedinkatua, ta ez neuke nai nere umetxoak jakin gaberik geratzen neure arlotekeriz. Orregaitik bidaltzen dituraz ikastolara, biar edo etzi len esan dedan bezelaxe, alde batetik indartsu etorri daitean eta beste aldetik ez gaitian izan madarikatuak urrengo edo datozen jenerazioengandik.

Esan dedan bezela, ez dakit idazten idatzi bear litzaken erara, orregaitik Zuzendari jauna, pozpozez egingo neukez beste batekin, nai gizona izan edo emakumea, alkar-izketa batzuk, eskutitzeren bidez, baiña, nik baiño geiago dakiana ta nere anka-sartzeak, agertuz, polliki-polliki-polliki, ea legunduaz joaten naizen lagunduko leustakena izan dedilla. Egingo al didazu mesede au edo lartxo eskatzia al da? Biderik egokiena idurutzen zait, orrela ardura bat artzen det nere buruarekin, ba asti oso gutxi daukaten lez, lotuta geratzen naiz, ta irakurtzean aldian askoz be mamintsuagoa izango litzake alkar arteko kontuketak.

Zenbait aldiz gogoratzen zaizkidan nere amatxoren kanta zaarrak, batez be, nere anaitxueri bularra eman eta gero lo eragiteko abesten zituan kanta goxo aiek. Ez, ezin naiz aaztu, eta ezin neike sekula ere aaztu.

Bidali ba aurrerantzean aldizkari ori. Barkatu ain errespetu gutxikin argiratzea eskutitz au, baiña idatz-tresna zaarra dan lez, azken orduan ez du nai izan lan egiterik, eta orregaitik eskuz amaiera ematera nijoa. Barkatu neure uts egiteak eta jarrai aurrera lan-bide ontan, ba, izkuntza gabe ez dago erririk.

ELGETARRA

Gure oarra.—Ederto dakizu euskerea, z ta s batzuk zuzentzen ikasi ta esturasun barik idatzi daikezu. Bitartean, bota ona zure kezkak, ta argitaratuko dautzuguz. Parkatu gaurko au argitaltzeko zure baimenik ez ba' dogu be, eskatu dautzugu baiña zenbaki onetarako berandu etorriko da, orregaitik ez dogu zure izen osoa jarri. Ta iñork nai ba'dau idatz-trukean beronekin asi, esan daigula ta alkarri idazteko bidean jarriko doguz AGUR'en.

BATASUNA

Munduan toki eder asko izango dira, baiña nik, ez dut ikusi, Ernio mendipean arkitzen dan Errezil eta inguroko tokiak bezin zoragarririk. Alderdi guzian usoak atseden artu naiean bezelatsu, baserri txuriak ikusten dira. Basetxe oiek politak eta paketsuak arkitzen dira. Nekazariak, langilleak eta apalak. Urraki mendi gaillurrean arkitzen dan Zuloaga'ren babesa, nork ez du ezagutzen?

Maiz igaro bearra izaten dut, ta bein baiño geiagotan Errezil eta inguroei, txoraturik begira egondu naiz.

Joan zan larunbatean, eguardian antxen nintzan, ta atseden apur bat artuaz 455'garren Z. A.'ri begiratu aldi bat eman nion. Lendabizi iriki, ta Baserri aundiaren idaz-lana irakurri nuan. Alegia, Amatiño gazteari idatzitako erantzuna. Idazlan onetan, Basarri'k arrazoi batzuk agertzen ditu, ta oietako bat auxen dugu: «Gipuzkoar euskerari zorrik ez dien esan-moldeak ba ditu Bizkai'ko euskerak. Aberatsagoak eta indar aundiadokoak ere bai, noski; tarteka. Bi euskalkiok gogoan bear genituke egizko euskeraren batasunerako».

Batasuna itza baiño itz politagorik mundu ontan ez dira asko izango, bate zalantzik gabe aitortu genezake itz polita dala. Baiña, batasun batera iristeko, lenbizi alkarren maitasuna edo alkar maitatzen ikasi bear dugu. Batasuna: maitasunaren emaitza bait-da, orregatik, emaitz au lenengo eldu egin bear, ta ortarako alkarren iritziak begirunez entzuten ikasi.

«Euskera polita da antziñakoa dala-ta, gure izkuntzaren batasuna lortu bear dugu, bestela euskera galdu egingo-da».

Era ontara askotxo mintzatzen dira, Bestalde argi dago gure izkuntza il zorian arkitzen dala. Ta egoera ontan zergatik edo zeren erruz dago? Batasunik gabe arkitzen dalako? Edo-ta gu, euskaldunok, zabarrak eta largiak geralako? Argi ta garbi ikusten dugu, gure izkuntza oso gaxorik arkitzen dala, ta ilda ikusi nai ez ba'dugu al dan azkarren zerbait egin bear dugula. Baiña gaxorik dagon gizon bateri osatu ta sendatzeko zer egin bear zaio? Lenbiziko lan berezia, gaxo dagonaren biziari eustea izango da noski, ta gero, pixkana-pixkana indartu. Erria'ri begiraturik esango nuke, gure izkuntza ez dala polita ta zarra bakarrik. Onen atzetik erri bat dagola, ta erri onek bizitzeko eskubidea duala, ta bizi nai duala.

Orregatik, gure euskal bizia euskeraz eraturik izan bear du. Egi au, ezurretaraiño sartu bear dugu, ontan zalantzarik ezin izan.

Ni gaztetxo nintzala, Bidasoaz bestaldeko euskalerri zati bat ezagutu bearrean arkitu nintzan. «Ikastolak Aurrera» idatzi duten antzeko taldeak, erasotuta. Zer ikusi ez gendun!

Jakiña euskal-senide bezela maite ditut. Nola ez! Orregatik, batasuna bearrezkoa ikusten dut. Baiña batasunerako maiz entzun oi izan dugu: Euskelgi batean egon ditezken itz joskera etabar, ontzat artu bear dirala, alegia, batasunerako euskerarentzat; orobat guzien iritziak, auek ere danak onartu bear ditugula ta entzugarritzat euki, guztiak askatasunez agertuaz alkar alkartu al izateko. Gure urratsak elburu ontara zuzentzen ez ba'ditugu, doillorki jokatzea izango-litzakela, batasun batek ez duala ezer balio guztion onerako ez ba'da.

Baiña guztion ona ta euskeraren on ori zer dan eta zertan datza? Au aztertzean itz auek dakarzkit burura. Alegia, Euskera batuan erri-senide guztiak gogoan ditugularik jokatu bear dugula. Esate baterako, nik usten dut, euskal-errialde guziak maite ditigula, ta neretzat eta beste euskaldun anitzentzat, Bizkai-erria oso kuttuna izanagatik euskera batasunaren barruan, erri ontako itz eta joskera gutxi ikusten ditugula.

Bestalde Bizkai'ko euskelgia ezagutzen dugu aberatsenetako bat bezela.

Bizkai, Baskon, eta Pirenaiko; iru euskelgi auek Bonaparte'k «Le Verte Bosque en tableux» (London, 1869) izki auegaz bereizten ditu. A. B. C. Bizkai'ko euskelgia Bizkai'an, Gipuzkoa'ko sartaldean eta Araba'n mintzatzen dute, ta Bizkai'ko euskelgia denan artean nabaritzen da.

Euskeraren batasuna bai! Baita ordea euskalerrien batasuna ere, guztiz alkarturik dauden bi elburu bait-dira. Euskerarena ta erriarena, orregatik ondo oldoztu ta aspertu eziñeko alkar-izketaregaz, batasun ori lortu bear dugu.

Orra beraz, erria maite duan baten lenengo ta garrantzi aundienetako egin bearra, jokera ontan ez dago mugarik.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

POZAK ETA KEZKAK

Barriro bere, poza azaldu bearrean gagoz. Aldizkari geientzuen zuzendariak erriko euskerea lantzen eta zabaltzen asiko dirala-ta, izkuntzeari indarra emoteko bear dan bidera datoz, baiña arren! Ez gaitezen, urrengo, ganorabako «yenka» dantzan barriro sartu!

* * *

Dana-dala, idazten izan dan guztia ez dogu pozik irakurri. Aldizkari baten, «Euskera mantxatua *behar dugu» izeneko idazlana, edonor arritzeko aiña da. Irakasle oso gitxi ei-daukaguz, ala ta be, euren txarteltxoakin kontrolakuak bakarrik izango ei-dabe irakasteko baimena; Galdu dan izkuntza ikastea oso zailla omen da, alata bere, maillaka, esakerak ikasten joan bearrean, giza-lotsa pizka bat daukan edonorek ixillian erabilliko daben izkuntza* mantxatu *berezia irakatsi bear ei-da. Gauza bat da gordinkeri ta lizunkeri azkurak sarri sarituak izatea: antzerki, «poema» ta eleberri sariketetan... alkar-goratze antolatzaleak eta epaimaikoen aburuak ukullurako joerea dutelako-edo. Baiña ortik, eleizako aldizkari baten ori bera eskatzea, ulertu eziñekoa da gureizat beintzat. Ez ete-dago gure izkuntzea len bere bide askotatik naiko «mantxatua»?*

* * *

Ikusten dogunez, Iruña'n, Cortes Izal jauna da «tendenzia aurrezaleko» ikastolen buru egiten dana. Orain, Euskaltzaindiko ordezkaria bere bera izango ei-da. Beraz, zer esan nai ete-dau «tendentzia aurrerazaleko» orrek? Guk uste gendun euskera bat egoala, euskalkietan banandua egon arren, baiña orain ikusten dogunez ikastola batzuk atzetik *dabiltzan «aurrerazale» dira... ta besteak? Aurretik doazan atzera begirazaleak izan bear? Aspaldi entzun gendun kuku'aren kanta! Ta umeen eziketa zelakoa izango danaren susmoa artu bere... gurasoak itxartu arte!*

* * *

Beti esan dogu: erri-kulturaren izenean alperriko zenbat-gura liburu idatzi dirala, egilleak eta beste iru edo lauk irakurri ta ulertzeko aiñakoak. «Etor» editorialekoak erriaren oberako, bide obea artu dabela dirudi... Baiña, beste olako baten argitaratu barri dan «liburu» bategaitik au diñoe kritika baten: «Baina herritar gehienek irakurri gabe utziko dute. Eta, irakurtzen badute ere, ez dute ezer askorik ulertuko» edo «Irakurleari besterik gabe ematen bazaio textua, irents dezan, irentsi ezezik, ito ere egingo da...» Ez bildurrik izan adiskike, lenengoa egia, irakurtzen asi be ez dok egingo-ta!

* * *

Azken «Txistulari» aldizkaria ikusi dogu. Obe ikusi ez ba'gendu! 250 arpidedunetik gora dira «baja» emon dabenak. Banaka batzuk euren eskariz; beste geienak «reenbolsoak» itzulita. Zer jazoten da? Emen ez dago h eztabaidarik edo ideoloji nasterik... ala bai? Nere ustez, guzurrezko euskozaletasun ugari dabil or zear. «Txistulari» guztiona da, euskal eresiak erriaren kulturagintzarako dira... baiña erri bakoitzak ez ete-dau berak merezi daben giro ta ugazabarik izaten? Ala «Triunfo», «Ruedo», «Hola», edo «Pravda» artu bearko etdoguz ba?

* * *

Ederra entzun gendun lengo baten! Gazte batek Estitxu abeslariagaitik: «esa es una burguesa» esan eban... ezta gitxiagorik bere! Guraso langille, jator eta kementsurik izan da'da, Estitxu'renak dira. Amabi seme-alaba, lan eta neke naiko pasatuta aurrera atera zituen, erriaren aldeko zereginari arpegi emonaz, bide batez... Neska-mutillak aurrera doaz lanaren eta elerti doaiaren laguntzeagaz. Orain, Estitxu abeslarien artean goi-maillara eldu da, baiña «burguesa» ei-da? Tira, tira, ixillik egon zaiteze ganorabako «aitaren seme-alabatxuokn! Nork nori! zuek bai burges eta alperrak! Za ete-dira orduan Picasso, Neruda, Allende ta Mao bera be? Zenbat alperriko barriketa ago-beroen artean; baiña Altos Hornos'era laneanbesteak!

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

ZORIONA!

Bai adizkide; Gabon jaiak barriro eldu jakuz. Eta barriro, betiko gauzak ikusiko dozuz: zugaitz apainduak; Gabon-aldietako argiak; kaleak kolorez jantziak; zarata ta jokua; soiñu ta abestiak...

Itz polit asko esango dozuz. Bai; itz polit asko gure ezpaiñetan... baiña itz utsak. Barriro ospatzen dogu Belen'eko jaiotza, baiña ez dautsagu garrantzi aundirik emoten. Askotan zure Gabonak eta gazte askoren Gabonak gauza bat bakarrik izan dira: ITZ POLITAK ESATEA!

Urtero Gabonetan, Jauna jaiotzen jaku biotzetan. Baiña guk ez dogu au ausnartzen. Kristo txirotasunean jaio zan, eta guk Gabonetan dirua bara-bara erabilten dogu. Gure Gabonak jo ta ke dabiltza; eta ba-leike beste askoren Gabonak oso bestelakoak izatea. Olako... ZENBAT GABON JAIAK IGARO DOZUZ?

Ez; ez euki lotsarik erantzutean, nireak be olakoak askotan izan dira-ta. Baiña aldatzeko ordua eldu da. Benetako Gabonak oso zaillak dira.

Bai, adizkide, zergaitik alaitasuna ez euki? Poztu egizu zure biotza, Gabonak poztuteko aldiak dira. Nik ez dot esaten alaitasuna galdu bear dala; nik ez dot esaten abestiak baztertu bear doguzala... nik esaten dodana au da: GOGO BARRI BATEGAZ OSPATU BEAR DOGUZALA GURE GABONAK!

«Zorionak», edo «Urte berri paketsu bat» edo «Pakea Gabon Jaietan» esan ba'dozu, jakin bear dozu Gabonak ez dirala iñoz bukatzen. Bai, adizkide, «Zorionak»! zuri gaur eta beti; «Pakea» zuri gaur eta beti! Txerrena izatea izango litzake gaur «Zorionak» esatea ta biar alkar zapaltzen bizitzea.

Gabonetan, gizartea lo dago. Eta lo sakon batean gaiñera. Gabon aldietan oso ondo jaten dogu, edan be bai... baiña auzoko gizon eta emakume askok, ez dabe eukiko zer janik eta edanik gure Gabonetan. Eta Belen'en jaio zana, guztiontzat da.

Kristo'k ez dau tarterik; guztiontzat jaio zan estalpe otz eta txiro artan. Kaleak oso apainduak egongo dira, baiña kaleak ez dira ilten. Zugaitzak «bonbillatxo» asko eukiko dabez txintxiliketan, baiña zagaitzak ez dabe gogoanduten... Auzoko gizon txiroak, ez dauz argi ta bonbillatxo asko izango; BAIÑA GIZON BAT DA! Eta gizona dan ezkero, bere eskubideak izango ditu.

Beste Gabon jai batzuk etorri dira; eta beti lez, gure arteko alde edo tarteak gero ta geiago dira. Zergaitik?... Galdera zorrotza gure egunotan. Bai; adizkideak, gure Gabonak askotan ez dira zuzenak izan. Askotan esku bategaz ogia emon dogu, eta besteagaz makillea prest euki dogu, Ia ba aurtengo Gabonak bestelakoak diran! Ia Kristo ikusten dogun auzoko anaian! Ia Belen'go estalpea ez dogun biurtzen jauregi aberats batean!

Gauz onek lortzea ez da erreza; baiña bai bearrezkoa. Askotan gazteak esan dogu: «Eleiza txiro bat!», eta gure patrikak beteak egon dira. Orain nik esango nuke: «GAZTEOK: GABON JAI TXIROAK!»

Ona izango litzake aurtengo Gabonetan, «champagne» eta turroi gitxiago artzea eta gure anai guztiari geitxoago begiratzea; ONA ETA GAZTE BULARTSUEN EGITEA!

Eta bukatzeko, AGUR'etik nire biotzbiotzezko ZORIONAK irakurle maite guztioi.

EZKAURIATZA'TAR XABIER

ETA NI EZ NAIZ POETA

Beti, lenengo itza, barkatu.
gero, ekintzetan
adarra jo.

Karraxi egin bear danean,
ixilik, ixilik egon bear danean
karraxi.

Gabean lotan, egunez... berdin.
bere ametsa, auxe da.
Illea luzatzen ustea.

Zertarako poza?
zertarako negarra?
iñork entzungo al-du?

Lana egin, izerdia ixuri
oraindik ordea,
barrua ezin ase.

Asarrerik ez balitz,
ez litzake gerlarik...
ez gizonik.

Neure kolorea gorria da,
neure jokaera txuria,
txisteak berriz, berdeak guztatzen zaizkit.
Ni euskaldun ote naiz?

Bizarra mosteko tresnak
saltzen ditut.
Nolaz utziko det
bizarra luzatzen?

Lau anka zituelako
jarri ba-zioten izena astuari.
Ni ez nago konforme,
lau anka baiñon gutxiago dituztenak
ezagutzen ditut ta.

Batzuk, gabean lan
eta egunez lo, besteak
egunez lan gabean lo.

Eleiz dorreko kanpaiak
eleizara deitzen dute.
Meza emateko apaizak
ezin dira arkitu.

Jostatzeko, denak gera gazteak,
zaar biurtzen gera lana egiteko
orduan.

* * *

OARRA.—Telebistan, Carrasco'ren konbatea edo mutur-jotzea ari zen unean, idatzi nitun, lerro abek.

RAMON ZAPIRAIN


ZORION'EN DISKO BARRIA

Lotazil onen 7'gnean Zornotza'ko «La Bella Otero» deritxon jolas-lekuan Egileor'tar Zorion'en bigarren diskoa aurkeztua izan zan. Bertan, Bizkai'ko irrati ta izparringietako ordezkariak egozan, geuri lez, Zorion'ek deituak.

Jaiari asierea Uriarte tar Edorta'k emon eutsan, jailadiko aurkezlaria zan ezkero. Laisterrean, Zorion bera agertu zan, ta ospetsu egin daben abesti batzuk abestuaz giroa egokitu. Abesti orrein izenak danok dakiguz, edozein tokitan entzuten doguz-eta: «Bizi Beti Euzkerea» ta abar.

Azkenean, bere biribil barrikoak abestu euskuzen. An egoan jenteak oso gogotsu txalotu ebazan ta, uste dogu, Euskal-erri osoak be bardin egingo dabela, ba, garbi ikusten da abeslari au geure-geurea dala, Euskalduna.

Aurrera ba Zorion! Ziur nago zuk gure izkuntzea mundua zear eroango dozula.



Beste barik, bere disko barri onetako itz batzuk jarriko dodaz:

E Z

Ez, ez gaude pozik
oraingo biziaz
Ez, ez gaude pozik
laguntasunagaz
Ez, ez gaude pozik
oraingo guzurraz
Ez, ez gaude pozik
maitetasuna dago eskaz.

Gizon guztiak
askotan usten du
laguna daukagula,
bai lagunak,
baiña egunak
igarotean
ikusten du,
ez dala egia.
Ez, ez gaude pozik...

Promesa asko
dira egunero,
onek etorriak
ez dago ezer,
errua
izango ete-da
danon-danena, usten dut
danon-danena, usten dut

Ez, ez gaude pozik...

Doiñua? Laister entzungo dozu irratietan, Hit Parade deritxon abestaldi orretan; Igandeetan, eguerdiko 12'etan.

Emendik, eskerrak Zorion'i, bere jai orretara deituak izan garealako, baita jolaslekuko ugasabari be. Agur eta laister arte!

LOURDES TA XABIER

EGIZ

Siñistutea gizonarentzat,
egiz, arrigarria da,
ikusi barik ontzat artzea
Egillearen eskarra;
baiña iñoz ez dau gizona apaltzen
askatasunai begira,
argi barriak geituten dautsoz
doi ori ontzat artzera.

Bizi egarri uka eziña
guztiok dogu barruan,
indar aundi au nundi jatorku
geroik ez izatekotan;
nire izatea, zer diraustazu
karrazi mintsu orretan,
ez naizu galdu, ezer ez ba'da
itxaropen illunetan.

Baiña gizona, ez izan bildur,
egia geugaz daukagu,
aragi jantziz etorri da-ta,
EGILLE BERA maitetsu;
ontasun utsa itzez t'egitez
Bera da gure goiburu,
geure Jaubetzat artu dagigun
bidea zabaldu dausku.

Zuzentasuna ta on eitea
maitasunagaz batera,
jarri euskuzan ezaugarritzat
bereak olan giñela;
gizontasuna or agertzen da,
egiñalak egiñala,
siñistuteak garbi dirausku
Kristo Jaungoikoa dala.

Egi onenak Egitik datoz,
Kristo Bera da EGIA,
Bere izatea egiztearren
garbi emon dau bizia,
jokera ortan agertu euskun
Bere gurari bizia,
maitasun utsa odol artean
Bere ezaugarria zala.

Ordutik ona lur maite ontan
siñismena dogu argi,
nora ezean ez gara ibilko
izar argia jarraiki;
egi, zuzentza ta maitasuna
jarri euskuzan gidari,
ateak, iñoz, itxi bagerik
geure askatasunari.

PAULIN

EUSKEREAREN ZABALKUNDEA EGITEKO

Arenaza'tar Josu'ren «Euskera sartu adi etxera» idazlanak bultza eragin daust lenagotik egin naian nenbillen au egitera.

Ez dakit euskerea salbauko ete dogun. Orain arte lez aurrera be etorri ta etorri ba datoz erdaldunak gure Euskalerrira, aukera guztiak eskuratzen doguzala be errez ez da izango. Ziur-ziur dakidana beste au da: Zera, orain arteko jokabideagaz, au da lengoekaz gaiñera beste bide batzuk urratzen ez ba'doguz euskereak bururik ez dabela jasoko, il egingo jakula.

Gaur jendearen itxaropen guztiak ikastoletan ipiñita dagoz. Euskaldunok ikastola arazoan egiten diardugun lanak bardiñik ez dauko barruan gaukazan Españia laterriko beste errietan.

Izan be ikastolak bearreko dira edozein izkuntza aurrera atarateko. Ikastoletan erabilten ez dan izkuntzak ez daiteke luzaro bizirik iraun. Euskera antxiñatik ikastoletan irakatsi izan ba'litz edozertarako gauza izango zan eta danean erabilliko eben eta ez zan gaurko egoera larrian arkituko.

Baiña ikastolak bakarrik ez dautsoe indarra ekarriko; euskal ikastolak askotaz ugariago zabaldu ta be orregaz bakarrik ez dogu salbauko euskerea. Umeak ikastolan euskeraz ikasi arren gero etxe ta kaleko erdal giroak erderara jarriko ditu.

Bai, siñisgatxa dirudian arren umeak euskal ikastolara bialtzen dituen etxe askotan ere erdera besterik ez dago. Euren burua euskaltzaletzat eukita be euskeraz egitea baiño metraillekoa artzea naiago daben guraso askori ederto etorri jake euskal ikastolea.

Illeko laurleko batzun truke euskerari ziaro bizkarra emoteko eskubidea lortu dabela uste dabe. Beste guraso askok umeeri euskeraz berba egingo dautsee, ori bai, baiña umeeri soillik eta euren aurrean alkarregaz erderaz jardungo dabe.

Bai, euskeraz itz egiteko jakin egin bear da, baiña orregaz dana ez da egiten. Euskeraz dakien asko dagoz oraindik Bizkaia ta Gipuzkoa'n baiña berba egin gitxik, gazteen artean beintzat.

Auxe da lenengoa, ikastolak eurak baiño lenagokoa: Euskeraz dakienak berba egin daien alegintzea. Gurasoak etxean irakatsi deioela euren umeai. Ta dakien guztiak, gazteak eta danak euskeraz berba egin daiela etxean eta kalean.

Gauza edo errazoi askogaitik jendeak ez dau euskeraz berba egiten: euskaltzaletasunik sentidutan ez dabelako, irabazirako balio ez dabelako, ta berba egiteko doguzan errazoiak ezagutzen ez dabezalako. Amar euskaldunetik bederatzirek euskera aldeko itz bakar bat sekula ez eben entzungo.

Erakutsi deioeguzan orretarako doguzan errazoiak. Euskera barrutian doguzan arazo guztien artean auxe lenengo ipiñi bear dogu, euskera alde doguzan errazoiakaz erri osoarengana zabaltzea. Elburu au daben zabalkundea eratu bear dogu. Euskaltzaindia'k, edo Euskerazaleak edo olakoren batek zabalkunde onen ardurea artuko ba'leu obe; baiña goikoak zer egin edo aginduko dauskuen zain denborea galdu barik, asi lanean danok, geure kalean, geure errian, geure indarrez edo alez eldu geintekezan toki danetan. Erri askotan dira euskera aldeko taldeak ikastola arazoari arpegia emonda dabizenak. Onetxek artu bear leukee euren gain arazo au. Ganoraz egin ezkero ezer be ez onagorik euskerearentzat. Zabalkunde au euskerearen alderako bakarrik izan daiteala ta ez orren izenean berorregaz zer ikusirik ez daben beste kontu batzueri indarra emoteko. Ola egin ezik ona bearrean kaltea besterik ez geuntsake ekarriko.

Euskera zaletasuna erriari sartzeko era askotara lan egin leiteke, baiña erarik onena idazki bidez euskeraren alde itz egiten joatea izango litzake. Itzaldiak eta ipiñita lau katu besterik ez dira joaten, ta eurak lendik euskaltzale diranak. Euskera maite izan ez eta baztartu dabenengana eldu bear gara geure idazkiakaz. Alik eta itz gitzienakaz alik eta gauza geien esanaz; biotzetan ikutu egiteko modura. Ta, ez arritu diñotanagaz: erderaz idatzita. Euskeraz idatzita geienak ez leuskueke irakurriko-ta.

Lenengo euren euskaldun izatea zirikatu eta al ba'da zuzpertu. Euskeragatik garala euskaldun, euskera izan ez ba'litz ez giñala euskaldunak izango, ta euskera jakin eta itz egiten ez dabenak euskaldun txarrak dirala, euren erriaren saltzailleak.

Gaur gure errian bearrekoa dan erdera jakiteko euskera baztartu bearrik ez dagoala, biak jakin daitekezala, euskaldun askok dakiguzan lez.

Andi ustean, euskera baztartu, jakin ta ez itz egin eta nobere seme-alabai ez irakastea barregarrikeririk andiena dala (negargarria be bai, bai orixe). Karrerako gizon askok dakiela euskera ta orrek ez dautsela kalterik egin euren ikasketak ondo egiteko. Ta edozer gauzatan be jakitea kultuagoa izatea dala ez jakitea baiño; ta euskeragaz be bardin dala.

Mundu zabaleko izkuntza-jakintsu askok ardura ta zaletasun andiagaz euskerari begiratzen dautsela. Europa'ko izkuntzarik zarrena izanik antxiñako bizitzako kontu asko argitzeko beste izkuntzak baiño geiago balio dabela-ta.

Izan be gure euskerea benetan dala antxiñakoa, ba kastellanoak, prantzesak, italianoak eta emen inguruko beste izkuntza guztiak milla urte inguru baiño ez dabela ta euskereak lau milla urte ba-dauzala. Jesukristo munduan bizi izan zanean ez zirala oraindik beste izkuntza orreik eta ordurako euskerea zarra zala, antxiñakoa zala.

Olantxe, euskeraren alde esan leikezen errazoiak ipiñita idazkiak egin eta etxetara eroan. Baiña ez umeen eskuz jaboi auts paper zabalkundekoak izango ba'litz lez ate azpitik sartuaz. Ez, pertsona nagusiak, biñakako taldeak-edo, ateak jo ta etxeko nagusieri emonaz, gauzeari garrantzia emoteko.

Jakiña, euskeraren aldeko zabalkundea egiteko modu geiago be ba-dagoz: egunerokoetan idatzi, esloganak ipiñi, ta abar. Baiña auxe onena nire ustez.

Ta amaitzeko. Euskerea, euskalerritasunak salbauko dau edo il egingo da. Ala be asko euskerari begira ipintzeko ogia irabazteko be balio daiteala lortu bear dogu. Jendeari atsegin jakon edo pozik joango litzaken enpleuak emoteko euskera eskatu daiela. Balio auxe emotea guziz ondo etorriko litzakio euskereari.

Beraz alegindu gaitezen oraintxe, berandu izan baiño len, euskereari indarra emon leikion zabalkunde lanetan.

ETXABURU'TAR J. M.

OLERKI SARIA

LARREA'N


Joan zan illaren 21'an Olerki Eguna zalata or izan giñan, Larrea'ko karmeldarren Lekaidetxean. Bear ba-da sariketa eta beste zertzeladak eta guzti norbaitek emongo du. Baiña nik erakusi nai nuke neure poza eta atsegiña an igaroko egun alaitsuarekin. Batez ere Euskalerri'ko gizon ospatsuenak ezagutzeko aukera izan nualako. An ziran Etxaniz, Zeleta, Labaien, Bordari, Beiztegi, Muniategi, Artetxe, Peña eta beste batzuk. An zan beste praille gorputzez aundia ez baña langille purrukatu eta jakituna dan Aita Onaindia! Eskerrak Xanti egun gogoangorri ura igarotzeko egin zituan alegiñagaitik eta urrengo urtean beste olako jai bat gertatzen dauskuzun an batu gintzan guztiontzako eta geiagorentzat ere bai. Eta zure libutegiak arrituta utzi ninduan, ba ango liburu eder eta ugariak eta mamintsuak ikusita amilduta geratu nintzan. Ba-zan an euskal liburu ugari eta, areik ikusita zelan sabindarren aroan etzala ezer egin? Ikusi eta siñistu egin bear.

UDALAITZ

ITZ-EUNDUAK

(XXI)

Etxebarria'tar Juan Anjel



AGERBIDEA

ZEARRETARA.—A: Abizena.—B: Bokal; Emon bearrekoa; Zaldien tresna.—D: Zeu; Atala; Omen (a. a.)—E- Musu; Lausoaren zatia (a. a.)—G: Et!; Entzun ezin; Konsonante; Bokal.—I: Adatsa; Guzti; Suezaugarria (a. a.)—J: Konsonante; Konsonante; Mimen; Atzizkia.—K: Beko lekuan; Asiera emon.—L: Bizia galdu; Mirari; Leku orretan.—M: Argitzen dau; Indar gitxiko; Bokal.—N: Bizkai'ko erria.

GOITIK BERA.—1: Barazkia; Lasterbide.—2: Konsonante; Sagardo ontzi; Kiñar (L).—3: Ezetza; Irrits; Konsonante bardiñak.—4: Noiz (B); Alper.—5: Eror-otsa; Gane; Kili-kili (a. a.)—6: Bokal; Konsonante; Orkoa; Bokal; bokal.—7: Kizun; Or bertan (a. a.); Geldi-aldi.—8: Etxeetako pizta (a. a.); Zutundua.—9: Leku orretan (a. a.); Gipuzkoa'ko mendia; Bizitzeari itzi (a. a.)—10 Eguzkia (BN); Donosti zarra; Bokal.—11: Etxeberri'ren idaztia; Garo.

XX'aren agerpenak:

Zearretara = Ariñeketan.—T; Ori; Luisa. aB; Irten; uG.—iaG; aznI.—Ta; Kui; A; K.—Aur; eaB; Ura.—D; O; Adi; nO.—Unai; Kio.—rO; Zokoa; Lg.—Tanka; Lur; I.—Indargarri.

Goitik bera=Tai; Adurti.—A; Batu; Noan. rO; Garoa; Nd.—Iri; Izka.—Nir; Kea; Oar. E; T; uaD; K; G.—Kle; Ibi; Ola.—Euna; Aur.—Ti; Zaunk; RR.—Asun; roiL; I.—Nagika; Ogi.

ASMAKETEA

(XI)

Garatea'tar M. Luisa

ZER IRABAZTEN DAU GAIZKILLEAK?



X'aren agerpena: **Zugatzarte.**



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zikindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz 44 **BILBAO**

ABESLARIEN TXAPELKETA DALA-TA...

Irugarrena degu aurten. Tolosa'ko jendea saiatzen da, bai, nai duanean. Udazken berezi ontan, talde asko izan ditugu, bertakoak ta kanpokoak. Ta zergatik kanpokoak?

Kantatzea gauza ona da, oso ona... «Kanta dezaiogun Jainkoari ta gure Erriari». Ala dio gure esaera zar batek. Ta gaiñera, gure denbora garratz, nastu auetan, bear bearrezkoa degu egizko alaitasuna, egizkoa bai, ez bestea, ta nola ez? gure gurea.

Baiñan, or geldituko al gera, aurrera jo gabe? Ain egokia da, errexera jotzea! Folklorea ongi dago, neurriarekin ta bere denboran, bestela ke-belarra biurtzen da, kirola bezela. Folklorea gauza bat da ta Folklorekeria, bestea.

Ori, alde batetik. Ta bestetik, dantza ta abestiak (Batez ere dantzak) askotan beintzat, ez al dira izkuntza baztartzeko aitzeki politak? Lenbizikoa izkuntza dala ez degu aztu bear. Erria maitatzea, izkuntza maitatu ta itz egitea da naiz inguruak eragozpenez josiak egon.

Zertarako nai ditugu dantza ta abesti ederrak izkuntza galtzen ba'degu, erderaz egiten ba' degu? Euskal soiñeko ta itxurak kanpotik... ta erdera ezpaiñetan; beraz animean, ori ez degu nai.

Lendabizi, Euskera, gero beste guztia.

Euskerarekin (Argi ta garbiarekin) dena.

Euskerarik gabe, ezer ez.

Gure Erriaren bizkar-ezurra ikastoletan dago, beraz nork ukatuko dio bere laguntza? Aurrera, ba ikastolak, batak eta besteak, alderdikeririk gabe ta gero, bai gure abesti goxo ta dantza alaiak!

MATXIN

NUNDIK NORAKOA XVI

Ale bakoitzik!

Euskal zaletasuna pekatu larria zan an abadegaientzako. Obe beste zer edo zertan oben egitea, eusko-lurrarenganako maitasunean lerratzea baiño! Ta, negargarriena, euskalerrietako semeak zirala orretan geien alegintzan ziranak. «Santua izateko politikarik ez zala egin bear»; eta goikoeri txalotzea ez zan edozer politikan eskuak zikintzea io eben gure nagusi ta ingurukoak. Politikatzat eta komenientzitzat artzen, polito ekien batzuk, karreran aurrera ta gora egiteko.

Arami'ren «Bizi» idaztia euskeraz ere agertu zan. Bazkal-orduan bateon bat asi yakun jantokian zabalkundea egiten eta idaztia saltzen. Gure mai-ingurura ere etorri zan eta erosi egin geutson ale bana, batzuk beintzat. Orren inguruan asi ziran, batez ere giputzak, lotsagarriak zirala errietan sermoi batzuk, eta ongi legokela euskera irakasteko ordu batzuk emotea. Jaungoikoaren itza txukun eta bear zan neurrian eta maillan irakastegitik zabaldu al izateko. Onetan, Sondika'koa, tartetu yakun zera esanaz, erderaz: «Mesedez itzi egizue euskerea. Abadeak ez dau zetan politikan sartu. Obe litzake irrati ta urrutikuskin tresnak konpontzen erakutsiko ba'geunskie, orrela gure errietan apostoladua egin legikegu jentearen artean». Guztiok oldartu gayakozan gogorki ta bere lerratzea aurpegira bota. Es naz ondo oroitzen zeintzuk gogorkeri esan geutsozan. Danadala, gizona gorri-gorri eginda, ixildu egin zan eta guk, neuk eta beste giputz batzuek, gureari sendo ekin.

Zoritxarrez, a lako mutillak asko ziran. Zoritxarrez, otoi-zale andiak edo otoi itxura-zaleak eta goikoekin beti labankerietan ibilten ziranak. Gu besteok, legenardunak giñan, jende aurrean ibiltzea galazota genduenok; iñor ez zikintzeko, jakiña.

Egunak aurrera, ta Erroma'ko erabagiak zelako arrakasta izan daben ikusi ezkero, gure seminarioetako ikasketarako arau barria aurkezten dot, ea aurrera eleizak argi geiago dituen, kristau guztien onerako. Aggiornamento dalako ori ariñago ta sakonago egin daiten, teolojiko azkenengo lau ikastaroak, aldatu bear litzakez.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

GAUZ ERREZAGORIK!!

HERMITA TA HUMOREHA

Hache faltan hez dedilla gelditu nere hohihuha!

—Hehup!

—Nola?

—Bahi!

—Zer?

—Hez hahal dadik beharrezkoha dala bi bokalen hartehan, hahurrehan eta hatzehan, hori gutxihenez! Diptongo ta mondongo'k hez dizkitek beharrik. Hodolkihak berriz bi.

—Ah, henetzat zahila duk.

—Gaztelerazko ermitari, horahin hache hahurrehan himiñi behar homen.

—Bahiha?

—Bahi. Hache hortan kanpahia himiñitzeko.

—Ah!

—Hapika, hestructurak, planifikaziohak, konzeptohak, zihenzihak eta hahinbeste hitz hinportantek derrigorrekoha, hehuskeraz hezkirihatzekotan.

—Ah! henetzat zahila duk.

—Zer duk ta zer markes; borondate pixkat duhanarentzat horo duk herrez! Haurrehan, hatzehan, hartehan... bokala ikusi horduko hache hezarri, ta kito. Gahuz herrezagorik!

—Haizak, bahaldakik zertaz hohartu nahizen?

—Zertaz?

—Ba, batasunak ez duhala hache beharrik. Hunidak, bahi!

—To, harrazohin duk.

—K-k'a miherda esaten ba'duk here bahi!

HIPPI-HURRA

ARTEKALE

GAINGAIÑEKO SALTOKIAK

GABON ETA URTEBARRI ONEITAN

ZORIONAK

OPA DAUTZUEZ DANORI

ZUBIRI

GERRI-LOTURAK

AZPI-JANTZIAK

SOINKERA-LIRAIÑAK

Artekale, 50 **BILBAO-5**

ARTEKALE

Artekale'ko erosketea
erreza da ta atsegiña;
kale osoa zeurea dozu,
aukerea bere egiña:
Jantzi, bezuza, oski ta argontzi,
Artekale'an gura aiña.
Gabon aldian, zer erosiko?
Emen bereizte aundiña.

UGALDE

JOSTUNDEGIA-ATORGINTZA

Artekale, 16 **24-09-13 Urrut.**

BILBAO-5

SABAS

1875'gnean irasia

BITXITEGIA

IPURATEGIA

Artekale, 41

BILBAO - 5


IBAIZABAL

OIALAK-AZKEN JOSKERAK

ATORRAK-GALTZETORRATZEKOAK

Artekale, 35

Urrut. 23-15-93 **BILBAO-5**



OTAZUA

OIÑETAKOAK

OSKI ERABAKARRAK

Ikasleentzat
Ballet-dantza } Bereziak
Oin-ondutze

Artekale, 20 - Correo, 6
21-40-58 Urrut. **BILBAO-5**

JOSKERA BARRI TA GALTZETORRATZEKOAK

Guerricabeitia

BOUTIQUE

Artekale, 32 **21-65-67 / 24-89-65** **Urrutizkiñak**

BILBAO - 5

ZUBIRI - MARDONES

ARGONTZI APAINGARRIAK BEZUZAGAIAK

Artekale, 50

BILBAO - 5

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA



1971'gn urtèko ekiñaldia aztertu ondoren, onenbeste esan bearrean dago: Zuen, irakurle maiteon arrera onari eskerrak eusko-arloan agertu doguzan aberastasun zoragarrienak aurrera eroateko bultza ta indar barriak jaso doguz.

Zueri eskerrak, 1972'gn urte-barri onetan be, erdi galduta egozan altxor maiteak eta bitartean egiten diran alegiñen arnari mamintsuenak argitaltzen aleginduko gara.

Or dozue AZKUE'REN IZTEGI obetu eziña. Ainbeste urtetan euskeraz maite-minduen ezkutatuta egoan kezka ori, eskuratu al-izan dautsegu, ta orren eragiñez gorakada ederra egin be gure idazle ta ikasi-zaleak.

Or, baita, or daukazuez AZKUE beraren eta ALTUBE ziranen euskerea txukundu ta biztutzeko emon euskuezan zeaztasunak.

Or, RIEV, ainbeste gizaseme ospetsu ta jakin-mailletan gorengoen azterketa ta korapillo askatze.

Or, euskal-irakurgaiak: kondaira, ipuin, abesti, doiñu ta oitura, beinbetiko galdu ez daitezan ederto irarrita.

Gure alegin apalean, Euskera ederra ondo oiñarrituta geratu dadin, bear-bearrezko ziran idazt-aundiak eskuratu dautzueguz.

Danori baiña, zueri esker egin al-izan da. Ta aurrerantzean be orrela izan dedilla.

Urte-barri onetan, itxaropenez beteta, alkar zoriondu bearrean gara:

ZORION BA, DANORI, **AGUR** JATOR ONEN BITARTEZ, **LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA** ETXEKOENGANDIK

Ta euskal-jakintzaren egarriz bizi ba'zara, one emen alboan, sakel-neurriko idazti politetan irarrita:

Arana-Goiri'ren	**ZENBAKETEA**
Azkue'ren	**IPUIÑAK**
Kanpion'en	**EDESPENAK**
Arbelaitz'en	**IZTEGIA**
Iztueta'ren	**DANTZAK**
Garmendia'ren	**IZTUETAK AGERTU BAKOAK**
Peña-Santiago'ren	**GIPUZKOA iru aletan**
Gilarte'ren	**JUANA DE ASBAJE**

Ta lenago aipatu dogun Azkue ta Altube'ren Euskal-morfolojia iru aletan, baita Castresana, naiz Zabala, edo Sanmartin eta N. Villoslada'ren lanak.

Eta ez aaztu, Mogel argitsuaren PERU ABARKA elebiko edeski zoragarria.





1924'garren urtea zan... Prantzia'ko «Tour» dalakoa, amaitu-barria... Bottechia irabazle; gero, Frantz, Buysse... orduko ospetsuenak.

Giro aretan sortu zan «Euskalerri'ko Itzul-ingurua», Bilbo'ko «Excelsior» kirol-izparringiak eratu ta zuzendua.

Zabalkundea egiteko, orma-txartel polit bat ezarri zan bazter guztietan: sari-keta-bidez, Martinez Ortiz bikaiñak irabazia. Olantxe iñoan:

Lenengo ekiñaldia-Bilbao-Gazteiz-Iruña (Dagonillak 8).

Bigarren ekiñaldia-Iruña-Baiona-Donostia (Dagonillak 9).

Irugarren ekiñaldia-Donostia-Bilbao (Dagonillak 10).

Lenengo ekiñaldia, Francis Pellisier'ek irabazi eban; bigarrena, aren anai Henry Pellisier'ek; irugarrena, Simon Tequi eritxonak. Guztira, irabazle osoa, Francis Pellisier.

Urrengoko Itzul-inguruak, bost ekiñalditan zatituak izan ziran:

Bilbao-Gazteiz; Gazteiz-Iruña; Iruña-Baiona; Baiona-Donostia; Donostia-Bilbao... areik bai Euskalerri osokoak!



Euskal-birari jarraitu, bai; aizpak ikustekotan.


Ludiko txirrindularirik onenak etorri ziran eta irabazle onexek izan ziran: 1925, Verdyck, belgatarra; 1926, Frantz, luxenburgotarra; 1927, Victor Fontan, prantzeta-rra; 1928 ta 1929, Dewaele, belgatarra; 1930, Cañardo, napar-katalana; 1935, Barta-li, italiarra.

Aldi aretan txinrringazale gazte ziran gure irakurleak, pozarren gogoratuko dira or aipatu doguzan izenok eta zertzeladok irakurriaz.

Gaurko gazteak, oraingoen izenak darabillez aotan: Merckx, Ocaña, Petterson, Galdos, Zubero, Lasa, Gandarias (aurreratxuagoko Poulidor eta Gabika aiztu barik) eta beste asko ta asko... Baiña jakin begie, jakin, orain berrogei urte ba-zirala txi-rrindulari adoretsuak Europa'ko alderdietan zear, eta gure euskal-lasterketa one-tara etorriaz gure Erriaren izena mundu guztira zabaldu ebela.

Aurrera ba, eibartar anaiok, Euskalerri'ko Itzul-ingurua geroago ta obeago egi-ten... Eta ia noiz ikusten dogun, orduko areik bezela, Euskalerri osokoak **izaten!**

BEIÑAZU



ARRASATE'RI ZORION

Emakume bat

Alaxe da izan: emakume bat. Beste asko ta asko ere ba dira, baiña olakorik...!

Ostirala zan. Gazteiz'era noian autobusean. Aldamenean emazteki gaztetxo bat jarri zitzaidan. Ixillik ezin egon, eta.

—Egun on, esan nion.

—Baita zuri ere.

—Urrutirako asmotan?

—Matsa biltzera noa.

—Ze matsa baiño? Azaroaren erdian gaude-ta.

—Bai, baiño... nik ez dakit euskeraz; gutxi-gutxi bakarrik.

—Tira, tira, oso politto egiten dezu-ta. Ez lotsatu; biok jardungo gera bidean eta ikasi egingo dugu. Arian-arian ikasten da. Etxean egiten al duzu?

—Bearko. Bi ume koxkor ditut, Arantza eta Xabi, biak ikastolara eramaten ditut eta oso ondo ikasi dute euskeraz dagoneko; eta erderaz iizik esaten ba det, berealaxe asten zaizkit: amatxo, egin euskeraz. Illunabarretan neu neroni ere irakasle batengana joaten naiz euskeraz ikastera. Ikas-liburua ere ementxe daramakit aldean bidean apurtxo bat beenik ikasteko eta jaiotetetxean lanandia egin ondoren illunkaratan ikasten aritzeko, jaiotetxera bait noa matsa biltzen aitari laguntzera.

—Baiño, nungoa zeran jakin al leike?

—Bai, jauna, La Guardia'koa nauzu. Arrasate'ra ezkondu nintzan oñatiar batekin. Onera arte nik ez nekian euskeraz tutik ere. Orain ari naiz ikasi eta ikasi. Neretzat euskera oso politta da eta oso begiko ta atsegin zait...

Olaxe joan giñan bide guztian alkar-izketa goxoan, euskeraren bideak ikusten, zaletasuna mamitzen. Nekez antxean ziarduan, baiño naiko polliki egiten zidan euskeraz. Eta nere baitan nion: Oi olako emakume asko ba'lego!

Gatzaga gaiñeko inguruetan elurra agiri zan, baiño guk euskal giro epel goxoa generamakian alkarrekin. Ura zan ura emaztekia; xotil goxoa ta euskaltzale egitazkoa.

Zorionak, Beni, eta jarrai bide ortatik.

ANTZI

BEGIKO IZAN

Batzutan oso erreza da begiko izatea, beste batzutan gatx eta eziña. Zelan azpiratu beti begiko izaten galerazoten dauskuen eragozpenak? Zer egin? Eragozpenak egunero ta nañoz era nañon agertzen jakuz. Eroapena be galdu egiten da. Batzuk kalte egitea ta aspertueragitea baiño beste asmorik ez dabela dirudi. Ba'leiteke neu be eurentzat beste onenbeste izatea. Zer egin be ez dakit. Zelan jokatu ez...

Alaxe da bai. Batzukin begiko ta maitekor izatea oso gatx da; gu ondatzeko bakarrik munduratu dirala dirudi. Alan be ondo pentzatuta auxe esango neuke; orreik geure onerako dagie onela. Zelan? Geure nortasuna sendotzen irakatsiz. Gure egiteak geure-geureak dirala irakatsiko dauskue; geureak, ez beste iñorenak.

Erreza da geugaz begiko diranakaz begiko ta maitekor izatea. Mesede bateri irri-barrez, itz gozo bategaz erantzutea; baiña kalte egin dauskunari, ezkerreko begiagaz ikusten dogunari irri-barre egitea, gozoro itz egitea, ez da ain erreza. Ortarako indar egin bear da, biotza esku biekaz artu.

Maitekorrak diranakaz maitekor agertzea berezko da; saskarrak diranakaz maitekor-begiko agertzea aldatz-gora egiten jaku; baiña auxe da egizko kistarra izatea.

Geure nortasuna agertu dagigun beti ta danakaz begiko agerturik, geure barnea ezi, gainditu, azpiratu ta menderatu ta gizon eta batez be kistar agertu.

GOIRIA

ONA
ta
RAM
EZNEAK
ZUK
ONARTZEKOAK
DITUZU

GERTAKIZUNAREN GOGOETAK

JAI-ALDIA. Ikastolaren alde, Zestua'n

Izen-buruan, jai-aldiari ematen diot berezitasuna, oneri buruz, azterketa sakona, al dedan sakonena egin nai dedalako. Ala izan dedin, naiz-eta alegindu, ez dakit lortuko dedan. Esan edo agertu nai nituzkenetatik, nai bezela, gauzak eta gertakizunak azaltzen ez ote dizkidan nere berotasunak utziko, bildur naiz.

Orra or, xoxa batzuk atera nairik, aurretioko urteetan jarri izan oi dituan eran, antolatzen diguten jai-aldia. Azilla'ren 6'an, gaueko 9'tan. Abeslariak: Xalton, Ibarrondo, t. a., eta zer izen duten nik ez dakidan bi bertsolari. Ormadeiak ez bait-zituan beren izenak jartzen.

Batzordea berritu ezkeroz, lenengo jai-aldia bait-zan, eta ikusteko gogoz nengoan. Iñolaz ere ez nuan galdu nai, ta, pixkat berandutu arren, an joan nintzan ikusmirara. Sartu nintzanean, bertsolariak, beren lenbiziko agerraldian, lanean ari ziran. Bertsolari bat bertso-bukaeran, eta, ara emen nere lenengo zarrasta, txunditurik utzi ninduan zarrasta. Onela zion: «Ez du erria salbatuko ez kapitalismoaren grandezak, ezta ere, *Ikastola burgesak*».

Zer esaten zuan bai ote zekian? Bertsolariak ez dakit, baiñan, zer gai erabilli erakutsi ziotenak bai ote zekiten? Ez Zestua'koarena bakarrik, baizik Euskal-erriko Ikastola guzien bizi eziña, Ikastolan aur denak sarrera euki dezaten, dabiltzan eran dabiltz, urte-buruko eralkizun edo presupuestoa osatu eziñik, eta, Ikastolak burgesak direla bertsolarieri erakusten diardutenak irakasleak direla, gezurra dirudi.

Nortzuk ziraden, bada, Ikastolaren aldeko jai-aldiaren zuzentzailleak? Zuzentzaillea: Ikastola-batzordea. Antolatzailleak: bost orriko txosten sonatu orrekin zer ikusia daukatenak. «Elizaren direzio reakzionarioarekin alkartua; onen bitartez, estaduko aparatu faszistarekin», diotenak izan ziran jai-aldiaren antolatzailleak. Beraz, Ikastola-zapaltzailleak, nasketa-zaleak, Zestua'ko Ikastola-laguntzailleak! Benetan ulertu eziñekoa.

Batzordeko batek: «...anbientea sortzea, dirua baiño baliotsuago dek», omen zion. Talde arteko joko iñozo bateri bide emateko, Ikastolaren IZENA erabiltzea tamalgarria ez al da? Gaurko estrukturazio barrutian garbi jokatzea zail izango da, baiñan, beren joko traketsa aurrera atera dezaten, Ikastolaren izena erabiltzerik bai al dago? Orain, batzorde barrutikoak, zer joko zijoan ba'zekiten, jakiñaren gaiñean baldin ba'zegoan, batzorde barrutian jarraitzea egoki al dago? Ikastolaren etorkizunari laguntza kaxkarra eskeintzen diotela ez al dezute ikusten?

Anbientea sortu bai, baiñan, Ikastola-kutsuarekin. Erria kezkatu dedin, Ikastolaren beartsutasuna ikusirik. Ikastolaren elburua somaturik, esku-zabalagoa biurtu dedin. Ikastolaren eginkizuna, erriarentzat giza-emakume jator eta nortasunarekikoak eskeintzea baldin ba'da, erriak esnatu egin bear du, erriak lagundu bear dio, laguntza eskeiñi bear dio Ikastolari. Ez bait-da laguntza ori luzarora alperrikakoa izango, uzta ona ekarriko bait-du, eta egunen batean, uzta onen bitartez, nortasunaren jabe egingo gera. Baiñan, anbiente-zalearekin bai?

«Anbientea dirua baiño baliotsuagoa dek», eta, anbiente-zale oiek, sarreretan atera ziran txanponak, beren artean zabaldu zituzten, eta Ikastola xoxik barik, naiz-ta Ikastolentzako xoxa batzuk ateratzeko asmotan jai-aldia antolatu, naiz ta, azkeneko au, berak ez siñistu. Bost milla ta lareun laurleko atera ziran sarreretan, eta, iru milla, abeslari bateri emanak. Milla laurleko afaitarako, ta milla ta lareun gelditzen zitzaizkion beste gaiñontzekoeri, emateko. Beste gaiñontzekoeri araberan eman bear ba'zioten, Ikastolarentzako galera, baiñan, onuntz etortzerako ez ote zeuden ordainduta?

Goi-maillako abeslari euskaldun jator pranko igaro zaizkigu, bai, baita ere, bertsolari sonatuak, baiñan, iñork etzuan orrelako, saririk altxako. Orain, alderantziz gertatuak izan dirade. Zenbat bear duan galde, ta eskatu bearrean, eskua sakelera eraman eta eskupeko bat luzatu.

Nortzuk ziraden, bada, talde ontakoak? Marx'tarrak, Mao'tarrak, progresista purrukaturen batzuk? Ez dakit, baiñan, dana dala, diru-zale purrukatuak dirala ezin uka. Kapitalista utsak. Berak besterentzako duten itz-buru edo tituloa beren buruari ezarri bear litzaieketenak. Bestela, galdetu nik dakidan bateri. Ikastola esplotatzen! Eta, gero, Ikastolak burgesak dirala... Bizi ezin dan Ikastola bateri iru milla laurleko kentzen! Eta, arduradunak batzorde-barrutian jarraitzen al du? Ikastolako txosten edo informazioa altxa ta bere taldekoak jakiñaren gaiñean jartzeko? Gertatu izan oi bait-da. Tonto-papera egiñik bi arpegikin jarraitzen? UTIKAN! ZAKURRAK KANPORA.

Bertsolariak, azken-agurrean, onela zion: «Ez ote dago Zestua'n euskaldunik, ain txoko eder polita beteko duanik?»

Zer gertatu ote? Erriak, eiz-txakur antzera, urruntik usaia artu ote zion? Aurretioko urteetan, garai ontaz antolatu izan oi diran jai-aldietan, txoko eder au betea, leporaiño betea ikusi izan oi da; ta, oraingo onetan, antzokiko exer-lekuak erdiak utzik zeuden. Goian, taldeko iñozo bat edo beste, beian, akolito ezjakin batzuek erbesteko maxiadore, ta, geien, Ikastolari laguntzeko gogoz borondate guztiarekin joan, atsekabeturik irten ziranak, usaia artu etziotenak.

Jai-aldiari buruz zer geiago esango dut... Abeslarietatik bat aipatu genezakela: Ibai Errekondo. Beste gaiñontzekoak, txolarte edo lagun-arterako gaizki ez daudela.

Eta, Agur «AGUR»'endik.

EUSKO

BASAURI'KO EKINTZAK

Azillaren 22'gnetik 28'gnera, Basauri'ko Abesbatzaren 25'gn urtea dala-ta eraldu diran jakintzazko jai ta bazkideentzat ganetiko antolatuak ospatu dabez.

22'gnean, astelenean, bazkun onen aretoan itzaldi bat izan zan. Guztiz ezaguna dan bilbotar Etxebarria «Camaron»ek, Urrengoetxea irakaslea ta Ibarra'tar Kepa abeslaria lagun ebazala, antziñako bilbotar abesti ta esaerak azaldu euskuezan ta antziñako jazoerak, eresi ta abesti asko jakiñarazo. Atsegingarria izan yakon areto guztia betetan eban notintzari.

24'gnean, eta areto orretan bertan, Erregato'ko «Txomin»ek beretariko barriketa aldia egin eban, umetxuen eta andien barregarritzat, naita guretzat atsegiña izan ez aren izkerea.

27'gnean, gure Abesbatzak Bilbo'ko «Ensantxe» abesbats taldearen aretoan abestu eban, orretarako bilbotarrak bereziki deituta ta, zetan esan bez, ondo artuak izan ziran.

bertaratu zan notintza ikeragarriak txalotuaz, eta goralpen andiena lortuaz. Agur-Jaunak abestuaz amaierea emon yakon jai eder oni.

Aurkezpena, Larrinaga'tar Jon'ek egin eban, alai ta atsegiñez guztiok ipiñiaz. Gure zorionik beroenak AGUR'en bitartez, Basauri'ko Abesbatzaren Bazkunai, ain luzaro itxaroten izan garan beragertze onegaitik, baita lortu daben goralpenagaitik be, eta jarraitu dagiela bide ortatik eusko abestiaren onerako. Tamalez ezin etorri izan zan Arrati'ko «Oiartzuna» abez-taldea, batzuk gaixorik eukezelako. Beste baten izango da.

ADIMEN LABURDUNENTZAT

Lotazil onen 8'gnean erriko Gizarte Igelezketan, jakintzazko jaia ospatu zan, erriko adimen laburdunen alde. Jai orretan orain diran abestalde barri, abeslari, dantzari, ertilari ta abar izan ziran. Onein artean Basauri'ko «Alegre Ama-



28'gnean, igandea berau, orain 25 urte Abesbatz onen sortzaille ta lenengo zuzendaria izan zan Bilbao'tar Kepa zanaren gogo alde Meza eder bat ospatu zan, maitekor gogoratuten dan On Kepa'ren omenez. Eta urren, jaupa amaitu ondoren, Gizarte Igelezketan jai polit bat izan zan: lenengo, Maria Yanguas'ek zuzenduta, neska-mutiko auspo-jotzailleak joaldi bikain bat egin eben; orreik amaitu ebenean, Ugao'ko Abesbatzaren abestaldia, Etxebarria'tar Jabier'en zuzentzapean. Ederto, baiña pizka bat geitxuago gertatu bearra dabelakoan gara, ta zaletasun andia dauken ezketiño, ziur gagoz egingo dabela.

Ugaotarrak abestutea amaituaz, Galdakano'ko «Andra-Mari» talde ospetsuak ondo trebetuta daukazan eusko-dantza bikaiñak jantzatu ebazan; bein baiño geiagotan goralpenik andienak lortuaz, baita txistulariak eta batez bere, bakarjotzailleak be. Eta amaitzeko, Basauri'ko gure Abesbatzak barriz-barri abestu eban, beti lez ziurtasun andienagaz, Aldana'tar Kepa-Mirena zuzendari zala, erriko jaietan lez sutsu ta maitekiro necer» taldea; Mari-Asun Yanguaz neskatillea; Paskual'dar Karmele «Pilarin Muñoz» balet-taldeko jantzaririk aurrenekoa, Baita aldi baten «Los Bocheros» taldekoa izan zan Medinatxu soiñulari-abeslaria be. Oso saritua izan zan au, berton ezkeñi eutsoezan sariekin. Azkenez, ta bein baiño geiagotan, gure erri ontako Abesbatz txalogarriak abestu euskun ondo baiño obeto. Beobida'tar Iñaki apaiz ereslari trebea zuzendari ebala, beste derrigorrezko zeregin batzukaitik Aldana jauna ezin etorri izan zan. Esan dogunez, jai onuragarria bera.

Erriko Eiza ta Arraintza bazkunak be, zerbait egin naian adimen laburdunen onerako, zozketa bat antolatu dau. Txalogarria txori «erailtzaille» orrein asmakizuna.

Urren urteetan, gure erri guztiak ta batez bere gaztediaren artean, giza-barren geiago izango dalakoan gara, oneitako eusko-jakintzazko jaietarako, ea ortara asita, Urte-barri zoriontsuago bat lortuten dogun Erri minberatu onentzat.

KOLDO

GABON TALDEAK ANTOLATZEN

«CORAL FRANCISCANA» taldeko batekin topatu naiz. Otz da kalean. Edurra mendi gaiñetan. Onek dakarkigu oroitzera datozen Gabonak. Eta galdetzen diot:

—Aurtengo Gabonetarako zeintzuk dira zuen asmoak?

—Abestera ateratzeko. Laister murgilduko gera saiaketetan,

—Girorik bai al dago?

—Berealdikoa gure alkartean. Eta giro ber-bera sumatu degu gure eginkizuna dala-ta ortik barrena ibilli geranean. Tolosar talde geienak, guztiok ez esateagatik, irtengo gera kalera. «Udaberri», «Leidor» zortzikotea, «Eskolapioak», eta abar.

—Eta probintzian?

—Esan dizut, bada, giro berdiña, osa ona nabaitzen dala errietan. Esango nizuke aurtengo Eguberriak ortan berezituko direla guztiz.

—Eguberri taldeen asmo nagusiena, zein dala derizkiotzu?

—Alkarteentzat eta beartsuentzat dirua biltzeaz gaiñera, bereziki taldeen asmoa erri kristauari Kristo'ren itxaropena erakartzea da. Egun auetan guda eta gorrotoa besterik ez dabillenean nagusituta errien artean, Kristo'ren itxaropena erakarri nai genieke kristau guztiei. Eta ez diranei ere. Kristo'ren esanetan bai-bai-letorkiguke soilki oraintxe galdu degun pakearen ta anaitasunaren itxaropena...

—Ba-dakizu, beste urteetan...

—Jabetzen naiz zure esan naiaz. Baiñan gorrotoa, ezin ikusia, anaitasun eza, naigabea, oiñaze eta negarrarentzat ez dakust protesta obeagorik Kristo'ren ideala baiño. Gorrotoarentzat, maitasun. Zorionaren iturrian edan dezaten gogoratu arazi nai diegu erriari. Ea egun batekopake-iturri zaigun jai orretan egizko kristautasunera esnatzen geran datorren urte guztirako...

—Bejondeizula! Ez zabiltz epel...

—Eta berotasun onetan ipiñi nai genituzke entzuten eta entzungo gaituzten guztiak. Gure txistu, auspo-soiñu eta beste doñuen eresi alaiak urratu dezaten gaur-gaurko gizonaren naigabeak dakarkiten otza.

—Alaxen dedilla.

—Gure alegin faltaz ez da izango.

Neskatil gazte batzuek inguruan bildu zaizkio. Gazteoi agur esanik, txikierdi bat edatera joan naiz. Maatsaren orpotik zetorkidala iduritu zait, ardotxo itxaropengarria...

UXOLA

NOLA LAGUNDU

«Nik be lagunduko neutzueke, baiña ezin dot ezer askorik egin» sarri esaten dauskue, asmorik onenagaz. Ara ba, zuk bere zerbait egin daikezu, ta ez gitxi. Entzun ondo:

Euskal-aldizkariak gitxi batzun alegiñen arnariak dozuz, baita beste askoren txindi-laguntzaren laguntzaz, or-or eutsi al-izaten dituen esturasunak.

Languntza eder bat, irarri-anunzioetatik dator, baiña gure aldizkari geienen zabalkunde txikiak, lantoki ta saltokietako arduradunak kezkatzen ditu, ta euren etekiñen zabalkundea egiteko egunlari aundiak bakarrik ei-dira gai, erantzuten dabe.

Orra ba, jartzen doguzan iragarpen guztiak edo geienak, laguntza lez, eta ez zabalkunde onuragarri lez, emoten dauskuez. Ta au ez da egi osoa.

Bai, euskal-irakurle gitxi dira, baiña gure aldizkarietan iragartzen dana askok ikusten eta aztertzen dabe. Ta ara nun, zuk bere, lagunduko dauskuzun. Artu AGUR, edo GOIZ-ARGI, naiz KARMEL edo beste alako aldizkariak eta iragarpenak begituta, zeure erosketak egitera zoazanean, esan: «Zure etxe onen barri alako aldizkarian jakin neban, ta emen nator».

Bide orretatik, gure lana erreztuko dauskuzu, ta batzun sakeletako lokarriak nasaitu. Eskerrik-asko.

UBITZA

Tolosa

LARRAITZ, ZER?

Sorgiñen «desmitolojizatzea? Suaren «misterioa desentrañaitzea»? Patar eta ardo beltzaren mitolojizatzea? Ameskeriaren erregetzea? Manta azpiko goxoa antolojizatzea? Eta eszenarioko «horca» goratzea? Eta nortzuk urkatuak? gurasotasuna, paternalismoa, egizko maitasuna, oitura onak, itz jatorrak, izaben esanak, siñismena, euskalduntasuna? Zer gertatu zan?

Erriak ez daki. Erriak jakin nai du. Zergatik ez garbiroki mintza bertan izan ziran erlijiosoak? Alako gauz «pollitak» artuak izan bear zituzten magnetofonoan-ta!

JAIOTZA

Gure adiskide, ta AGUR eta «Goiz-Argi»ren irakurle eta euskaltzale sutsu dan Ugarte'tar Imanol, berriro ere aitondu dute. Billobari, poxpolin zoragarria, Estibalitz izena piñi diote. Zorionak!

ZINPEKOEN GAUZAK

Ala dio: «AGUR zabaltzen ari dira. Ale bat artzen dut. Lehen orrialdean ikastolen kontrako lan bi, bigarrenean beste bat, eta abar. Hori ez da euskal aldizkari, eta hasarre bizian botatzen dut lurrera». Zer gauzak egiten dituan batek burua galtzen duanean. Lenengo orriko lan bat nerea zan. Beraz, ikastolen kontrakoa naiz. Zure itz «justizialistei», eskarrikasko!

UXOLA

Zeanuri

I

MEZA BARRIA

Urrillaren 10'an Aizarna'tar Jose Mari, Andra Mari'aren Eleizan, Gotzain jaunak abadegintzan ordenatu ondoren lenengoz Meza Santua amar d'erdietan emon eban. Jentez beterik aurkitzen zan eleizea.

Bertsolariak, Sardui ta Puxana'k, egun orreri egokiozan gaiak erabilli ebezan. Erriko gazteak be, aparteko era baten ekin eutsen, bai abesti bai irakurgaietan eta abar. Zorionak abade barriari ta danori, ta gazteok, jarraitu aurrerantzean orrelan, ba-dogu gure eleizetan zuen laguntza bearra.

UPO'KO ARTZAIÑARI

Aurtengo udagoiean edo udazkenean eguraldiar iz dautsola igarri ta zer-esan ugari entzuten dogu: batak, artzain izaten jarrai daitela; besteak, isillik egongo ba'litz obe. Entzun dot baita, aurtengo negua gonzegi etorri dala ta ez dala izan gauza erreza igarle izaten. Jaramonik bere ez, eta aurrera, erratu danok egiten dogu-ta.

Ara ba, niri be batzuk «periodista» deitzen dauste; besteran batek «barrendera» bere bai, baiña nire erantzuna auxe izango da: ikasi egizue ondo Euskerea.

IGORRE'RA

Orain dirala egun batzuk Arrati'ko erritxo orretara joan nintzan, eta bertoko Urkitze baserrira sundik yoaten dan itandu lenengo topez egin nebanari, ta erantzuna: no entiendo. Ba-nijoa aurrera, ta itaun bardiña beste batzueri: no entiendemos, areik. Ikerea sartu yatan; Arrati'n ala erbestean ete nengoan ba!

Au egie da, baiña ez asarratu Landajuela'tar A. antziñeko ezagun ori. Aspaldian ez dot zeu ikusteko errarik izan, ea ba, udan, Gorbei'ra-edo igoten dogun.

Gabon eta Urtebarri zoriontsuak opa dautzuedaz danori AGUR onen bidez.

GORBEIATARRA

II

Zeanuri'n aspaldiz onantza oso pozik gagoz. Aldakuntza bi izan doguz.

Bata da, erriko agintari barria dagoala ta gauza ederrak egin dituala: Jaiak gazteen eskuetan itzi; URIBE'ko bidea... ta entzunda nago, pelota lekuan legorra, ta Ipiñaburu'ra be argia ipiñiteko gogoa daukala.

Gora gure Alkatea, ta eskerrik asko URIBE'taren izenean bide orregaitik, eta uste dogu Ipiñaburu'rako argia be ipiñiko dozula. Olan bertako ikasleak, euren bearrak obeto edo ariñago egingo dabez.

Eleizan be aldakuntzea izan dogu. Parroko barria ipiñi dauskue ta au be gazteen laguna ta gauza barriak egiten zalea da.

Ez da dana poza guretzat. Aspaldiz gazte asko ezkondu egin dira ta beste erri batzuetara joan dira biziten. Oreek Zeanuri gogoan izango dabela uste dogu ta etorriko dirala.

Joan dan illaren 10'an Aizarna'tar Jose Maria'k bere lenengo mezea emon eban eta jente asko batu zan eleizan beragaz eta Obispoagaz. Baiña abade egin jakunean, beste erri batera eroan dabe, ta zelango samiña Zeanuri'n gazteen artean! Bera izan da Zeanuri'ko gazteen indarra. Ez dogu aztuko Jose Mari, baiña emengo aurrera-bidean bere utsa asmau ez daiten, gazteak AURRERA egin bear dogu.

URIBE'TAR BAT

Usansolo

ERRIKO JAIAK

Beti poztu gaitu gure auzuneko jaialdiak ikusteak. Ander Donearen eguna bitartean dala, ainbat jolas eta eresi eder gaztediak antulatutako jai egunetan. Danak atsegingarriak izan ba'dira, gure ustez, igaz lez, txalogarriena umetxoen abesti-sariketea. Abeslariak, talde bitan banandu dira aurten; aurtxoak, zortzi urterarte, ta kaskondutxoagoak, emendik amalaura.

Nortzuk izan diran sarituak, ez goaz emen azaltzen, baiña ez dogu amaitu gura, Jokin taldekoen alde ezer esan barik. Bederatzi, zortzi ta bost urte, baiña zelan alkartuak. Uts bat egin barik, bai bakarrean, baita irutasunean be. Umetxoak erakutsi euskuen zer lortu leiteken, gizartean guraria ta gogo ona dagozanean.

Ez ziran lenengo gelditu, baiña euren ekin-bearrakaz bide bat baiño ez dagoala arlo bateri jarraitzeko ikasi genduan: EKIN ETA JARRAI. Jagon eskero esakuntza au, gure aurrean auzpeztuko dira, gure erriaren eragozpen guztiak.

Zorionak euren zaindari dan Jabier'i.

GABONAK

Jazo diranak, eta izango diranak. Zer egin dogun eta zer egingo dogun. Adizkideok! Une onetara eldu garan ezkero, oar bat auzune onetako bizi-lagun guztioi. Lotu gadizan apur baten, eguneroko ardurak albo batera itxita, orain arte zer egin dogun ikusteko gure erriaren alde, ta zer eskeñi geinken Jaungoiko umetxoari bere jaiotzan, arlo onetan.

Judatarra jaio zan, eta judatartzat euki eban bere burua. NIRE ERRIRA BIALDU NINDUN NIRE AITAK; bein baiño sarriago esan eban. Eta amaika negar malko, bere erriaren ukamena ikusiaz.

Eta guk, Euskaldun-errian jaioak, zer egin dogu, erriko oituren alde, bere izkuntz kutunaren alde? Sakondu dagigun itaunketa onetan, ta alegiñak egin ba' doguz, erakutsi daioguzan poz-pozik gure Jaunari, esanaz: «Au egin dot eta oso-osoan zeuri eskeintzen dautzut».

Lotan egon ba'gara orain arte, gure gurari barria erakutsiaz. «Jauna emen nago gertuta al dodan guztia egiteko», esan daiogun.

Zorionak danori!

ATXUTEGI'TAR JULENE

Arratia

Aurtengo neguaren ateak, azken joandakoenak baiño goizago erigi-zabaldu dira, eta bilin-balanka noraezean dabiltzan odei baltzak, katu ta txakur biurturik, zaparradaka datorkiguz trumoi-tximistartean.

Joan ziran, surtzuloak iparrerantz zabaldu ta biriak janaritutea; ego-aize kiskalari igeska egiteak eta abaroan egoteak; baita Upo'ko artzain jakintsuaren igarle izatea.

Gau baltzak eta egun gorriak doguz aurrean. Otza ta gosea buztarripe bateko egiñik agertu dira, ta gosez-otzez kikildurik eta negar murrinka bizi diranen aldezko eskeak egiten bere asi dira.

Nongo oxinean ito izan dira, edo zeintzuen sakelotan moltsotu ta metatu urteetako aurrerapenen ondasun eta kukurruku egiteak? Ludiak ludi izaten iraungo dauan arte ta gizonak gizonkerietan jarraitu, beti ta beti izango dira gosea ta asea, zapaldua ta zapaltzaillea, lotua ta azkatua; negarrak, barreak eta guda odoltsuak... naizta urtean zazpi alditan izan Gabonak eta Belen'en jaiotzak.

ITAUN ERANTZUNAK

—Gazte, aldizkari bi orriktatik zein dok, iretzat, atsegiñagoa ta ulerkorragoa?

—Bieri joten izan dautseedaz ekitaldiak, eta, ba-dakizu ba... guk egiten dogun euskera lotsagarria gaztelerazko itzaz gurutzatua ta josia dalako, eta beste au erdel-itzezko zaparradakaz egiña dalako, obeto ulertuten izan neban, baiña aspalditxu dala oso nastetsu dator eta ezin ulertu dot.

—Eta beste onetzaz zer diñaustak ba?

—Naizta neure eretxi apalen jabea izan, ez naz iñor epaiketak egiteko.

—Azkatu, bada, eretxiok!

—Euskera gozoagan, osoagoan eta mamitsuagoan agertuten da, eta nire begiak berarentzat dira.

—Eskerrik asko; jarrai bide orri.

OILLAGOR ETA ODOLOSTE

Emen izan doguz maiaren ganean, zabal eta arro jarririk, Euba'n eratsitako oillagorrak eta txori-odolezko odolosteak.

Zaran bete esker, Teo.

LANDAJUELA'TAR A.

Bilbao

NEGU AURRERATZEA

Uda luzearen ondoren, asi iakuz azillean eta lotazillean urtero lez euri zaparriak ugaritzen. Bilbo'ko aldi-ero ta ezotasun giroak aldatu dirala dirauskuen igarleak guzurtu-azoteko aiña euri, izan dogu. Euri-jasak batetik, otza ta txingorra bestetik ta mendi tontorrak edur matasaz zuriturik berebat egunotan begiztatu doguz. Garai ontako berezko arnariak ezaugarri!

Ori dala ta Upo'ko artzain yayoari, erri-jakituraz jokatzeko egiz trebea dan oni, Zazpi-kaletako jantzi dendari batzuk gabardin ta barometro eder banaren doaia egin dautsoe. Baita pozik be gure artzain bizkorrak garbardiñearentzat soin-neurriak zearo artu ta salerostettxean jabeei bialdu. Bai ba, Upo'ko artzaiñak bere aldi-iragarketetan lartxo, bear bada, otzak ta txingorrak belutu zituan, ta erri-zeiak negu usaiña bat-batean susmatu ebaneko, zazpikaleetako ta uri-zarreko dendetan guraiñ gabardin, aterkin, ta berogaillu erosi. Guenez, saltzailleak pozik. Orain bazkari baten alkartuko ei dira, ta artzaiñak Gabonetarako egualdi onak izango zirala esan ebanez, bazkari ori zelaian izango ei-da.

EGURATS-KUTSUPENA

Orain beste egurats aldakuntz baten barria emotera noatzue: Lotazil oen 3'gnean, gaberdi ostean, Otxarkoaga'ko auzunean euri-lokatzea izan dabe, euri baltza gau-ertzaiñak dirauskuenez. Bertan ziran berebillak ezeze, orrein soiñekoak, esku ta arpegiak bere baltziturik itzi eutsezan euri zikiña. Miñutu batzuk soillik iraun eban ta bereala euri garbia beti lez erion. Zioak jakiteko asmoz Sondika'ko Oartegira jo eben, ta onen erantzuna, ez zala, euren iritxiz, egurats mota berezíren baten ondorena. Aize ta euri-jasaren indarretik ta odeiak zerubetik igarotzeaz, gure berein lantegiko ke-zulo luzeen baterengandik, bear bada, ondakin-kedar baltzizkiñak bultzatu, euriakin nastatu ta aize txarameloan Begoña ta Otxarkoaga ingurumarietan jaurti ebezela.

GOTZAIN BARRIA

Gure erritar eta euskaldun dogun Zirarda Gotzain jauna ba-joaku urrutira, Cordoba'runtz. Gotzain barria Antonio Añoveros Ataun, naparra da, Iruña'n 1909'gneko urtean jaioa. Biok eskuratu bear dituezan lanak be gogorrak diranez, Zeruko argi eraginkorra opa dautseegu, ta kristau-zuzentasun osoan bete dagiezela euren zeregiñak eta arazoak, kristau-erriaren alde.

ERRI-ZERZELADAK EUSKERAZ

Itxaropentsu artu dogu «Gaceta del Norte» egunerokoak euskeraz ateratzen asi danan arlo barria. Kirol, eresmintz-diskoen barri, ta abar damoskuz orrialde ortan, ta bere egille dan Jose Luis Bengoa izparlariari eskerrak emon bear dautsaguz Ea irakurleak ugaritzeko bidea izatea dan, orren beste ta geiagoren bearrean dago gura euskera gaixoa-ta. Txukun, errikoi ta erreza beti; asko zabaltzen danetik ez dagiala izan iñorentzat barregarri!

ARREGI'TAR JOSU

Bermeo

URRILLEKO ATUN EZA

Aurten, urrilleko sasoain, ez dogu atun-arraiñik arrapatu. Zergaitik? Ba, urrun, asao egon dalako itxas-ontzi txikientzat. Urrun egon dan eskero, ezin juen, eta onexegaitik ez dogu atunnik arrapatu. Igazkue ta igaskuen aurretikuek zerbait arrapatutako urteak izan ziran, baiña aurten ez dogu bapebape irabazirik egin atunegaz. Lebatzagaz eutsi al izan dautsagu, ez ainbestean, baiña bai-bizi-moduari alanolan arpegi emoteko bestegaz, eta eskerrak Jaungoiko'ari arrain mota bategaz ezpada, beste bategaz ornidu gaitualako. Eta orain, neguko beseuari itxaroten gagoz. Izan dagigula igazkue baiño obie irabazieagaz, asko poztuko gara-ta.

GURE ERRIKO JAIAK

Jai nagusienak eta alaienak Andramariek izaten doguz. Jai onek Iraillaren zortzigarren egunetik aurrerantzean izaten doguz. Jai alaiak benetan, beti ez padira be, bai geienetan. Notintza be aundia etorten da auzoko erritatik gure erriko jai alaietara. Geu arrantzaliok be, atunetan urten ezkeroztik, bai gazteak eta bai zarrak, jai orreekaz gogoratzen egoten gara. Itxas-ontzi aundirik Canarias'ko uretan arraintzan ba'lego be, jai orreek ospatzera etorten dira etxera, ligorrez edo erriz baiño ezpada be. Onela ikusten izan dogu, aspaldiko urtietan, Canarias eta Aljeziras'etako uretan arraintzan dabiltsezen arraintzalien etorrera, eta berebil aundietan etorten dira. Berebil oneek jai danak amaitu arte egoten dira emen, eta ondoren barriro lenbiziko lekuetara joaten dira, au da, Canarias eta Aljeziras'era, eta erri orreetako kaietan daukezan itxas-ontzietan sartu ta lengo tokietako uretara duaz arraintzan.

Onek onelaxe dirala, zelakoak izan ditugu aurtengo Andramarijek? Neure iritxiz, esango neuke ez dirala izan jai alaiak. Zergaitik? AGUR'en 24'gnean esan zan aretxegaitik, eta jaiak obeak ezpadira izaten, arraintzaliek be ez dira etorriko, ta ori izango litzake okerrena!

AZPEITIA'TAR GOTZON

Galdakano

1971'GN URTEARI, AGUR!

Gure idaz-lantxu au idaztean, erabagi gabean aurkitzen da 1971'gngo urte au. Ori bai, urteak dabezan egunik gomutagarrienak kistar gaizadiarentzat, Gabon jayak eta urtearen azkena dira. Eta beraz, argia, ikusten dabeneko, betirako agur eginbearrean aurkituko gara, bide batez, Jauna'ri eskerrak emonaz oraiñarte emen euki gaituzalako bizi gareanok.

Urte barria asi baiño len, edo zar au agurtuten dogun bitartean, ondo egongo litzake orraitiño, bai eusko-idalazleok eta irakurleok baita ez idazle ez irakurle diran euzkotar gutiak be, igaro dogun urte barruan, euskera ta beste euskel arlo guztietan ta erriaren eskubideak aldeztuaz beste gizaki guztiaren azkatasuna aldeztuten, zer egin dogun edo zer egin bear gendun jakiteko, azterketa zuzen sakon bat egitea.

Gure lurralde ontan daukaguzan arazoak eta auziak be andiak dirala, edonork dakigu, eta erabagiten errezak ez dirala be bai, baiña, danak, erabagi ezin litzakezanak be ez. Zer egingo dogu orduan orretariko batzuk lortuteko? Oso gitxi, gitxi baiño ez direlako benetako erri-miñak bultzatuta azkatasun egarria asetuten iñarduten diranak, ezta norberaren, gizonaren eskubideak aldeztuteko kemen andirik dauken askorik be.

Ba-dira, banaka-banakak, euren burua zerbaiten bear dan baiño geyago erakutaiteko gertu dagozanak, baiña ixil-ixillian eta apaltasunean, egun bat eta bestean zerbait ongarri egin bear danean? Oso gitxi... Orixe bai, zerbait egiten dabenai akatsak eta utsuneak aurkituteko, errezagoa da izan be-ta, batzuk baiño gayago aurkitu legikez.

Ez dago esan bearrik, giro gogorpean garala, baiña, legeetatik urten bage, lege barruan era askotara lan onik asko egin legikelakoan gara, ta egiten da, baiña ez bear litzaken aiña: erri-jakintza bitartez, euskojakintza ta kiroletan bertan be. Euren «batasun» izenagaz ziñeskera, ideoloji nazkagarriz korapillotu barik; zintzo, txukun eta ulerkor egiñaz, zaletasuna sartu arte euskoseme guztien eta bertaratu diranen biotz garbietan. Berau, euskerea dogulako, sarritan esan oi dan lez, euskotarron ezaugarririk argiena. Orretarako, baiña, benetako euskel giroa sortuten alegindu bear gara, ta ez gogai nazkagarriz ta lizunkerizko korapilloz ziñespenez gaztediaren buru-ariñak naastuten ibilli, azken aldian batzuk dabiltzan lez, tamalez.

Gure ustez beintzat, orretariko azterketa sakon bat egin bearrean gagoz joan yakun eta egun gitxi barru asia izango dan urte barrian.

ERIOTZAK

Eriotza asko izan da azken aldian, neguan sarrayaren eta, beraz, danak aipatuten gaitza da. Lotazillaren lenengoan Jaunak Bere aldamenera eroan eban Azkueta'tar Agate, Zamalloa'tar Mikel'en alarguna argi zintzoa, ta Zamalloa'tar anai euskeltzale jatorren ama, irurogei ta zortzi urtedun zala. G. B. andera euskeltzalea; ta bere seme-alaba zintzoei laguntzen dautsegu atsekabean.

EZKONTZEA

Lotazil onen 8'gnean, Larrea'tar Jon-Gurutz, auzokide mutil ona ezkondu da, Elexalde'ko Andra Mari'ren txadon ospetsuan. Areatza'ko Bikarregi'tar Libe neskatil liraiñagaz. Gure zorionak, AGUR'en bitartez, Jon-Gurutze ta Libe, ta guztiz atsegingarri izango aal yatsue artu dozuen biziera barria.

BASA-JAUN

ARTISTAK ETA GIZATASUNA

Munduak ezagutzen dituan burruka ta eztabaidetan maiz nastutzen dira batetik artiste-ederzaleen egintza ta iritziak; eta bestetik gizarteari ta politikari buruz dituan asmo ta iritziak. Egun auetan entzuten eta irakurtzen ari gera Picasso pintatzaillearen gora-berak; edo Neruda olerkariaren aipamena dala, ta baita ere Pau Casals musikalariaren gorespena. Iruroi zorion-agur, omenaldi ta gorasarreak egin dizkiote.

Ezin uka diteke ertilari iruko ospetsua benetan trebe dala bere arte-langintzan, bakoitza bere bidetik oso gora, gaillurrera igoak ditugula, ta orregatik aien izena aiputan dagoala munduan zear. Baiña norberari berea emanez gauzak berezi ditzagun artista zer dan eta gizona bere jokabidez zer nolako iritzia merezi duan ikusirik.

Picasso'ren pintaketa lan batzuk balio aundia dutela guziok dakigu. Margolari gaillena dalarik tankera askotako Kuadroak egiñak ditu. Bat-bestetik oso ezbardiñak eta aren lana ez dala beti «garbi garbia...» Kubismo, abstraktokeria ta beste aldrebeskeriak bururatu izan dituanean jendearengatik parr egin nai duala dirudi. Maisuak alako libertadeak artzen dituzte... Or konpon! Orain nik uste iñork ez duala eskubiderik zenbait marraski zikin, likits eta lizunez paper eta oialak betetzea ta erakustea. Picasso agure lizun-belaxkak orrelakoak maite ba'ditu gorde ditzala beretzat iñon agertzeke... Au ez da «integristen» iritzia. Ez. Mauka-zabala duten Londres'ko agintariak aien erakusketa egitea galerazi egin diote. Gizatasunaren izenean.

Picasso Komunista dala diote. Ez dakit eta ez naiz sartuko aren politikan. Bai ordea esango dut parregarri dala «komunistatzat» izendatzea milloiez josirik dagoan gizona, Prantzi'an dan aberatzenetakoa... Onela errez da «komunista» izatea. Komeria utsa! Berdin izan liteke Mao-Tsetung'en iztar lengusu!

* * *

Bigarren ertilaria Paulo Neruda dugu, txiletar olerkari sonatua. Aurten Nobel otsaundiko saria eman diote. Bejoandiola! Euskaldunok arras gogoko dituala entzunik nago... eta baita ere gure jatorriko dala aitortzen ote duan. Ditekena da. Neruda'ri gertatu zaio ordea, gazte denboratik omuntz bertso asko, bertso geiegi ondu dituala. Orretarako griña izaki! Eta len esandakoak aztu egiten zaizkiola. Stalin aldekoa izan zan eta Errusi'an sariztatu zuten «Lenin» saria jasorik. Stalin il da gero, berriz oen aurka jarririk Mao'ren alde azaldu zan.

Ikusten danez iritziz aldatzen dan oietakoa dugu. Gure artean ere ba ditugu orrelako «intelektual» izeneko batzuek, oroimen argala dutenak. Orain Neruda Paris'en «enbajadore» egin dute ta gizonak aztu egin bear beiñola onoko bertsoaldia ondu zuala:

«Si usted nace tonto en Rumania
sigue la carrera de tonto.
Pero si usted nace tonto en Chile
pronto le harán embajador».

Gizarajoak ez dakigu orain zer esango duan baiñan lasa geldi dedin ez du bere itzak gogoratu besterik:

«Y quédese tranquilo, tranquilo,
es usted un buen diplomático
de Chile, es usted un tonto
condecorado y prodigioso».
(Pablo Neruda, 1948)

Ori gertatzen zaie gizatasun gabe zer nai astakeri esan duten artistai.



CASALS

* * *

Zorionez ez dira guziak orrelakoak. Or dugu Pau Casals katalandar ospetsua, musikalari bikain bezin gizon oso, zuzen eta abertzale purrukatua. Gizladi ontan izan dan «biolontxelo» jotzaillerik onena. Mundu zabalean txaloak jaso ondoren, 1936'gn. urtea aurretik Bartzelona'n bizi izaten gelditu zana. Bertan bere bizkar sortutako orkesta eder baten buruzagi izanik. Eta an ziardun lanean guda bukatua izan zan arteraiño.

Erbestera itzuli bear izan zuan eta ez du itzuli nai izan ez baldin ba'da askatasun osoan eta bere buruaren jabe. Errimiñez muga ondoan Prades'en aldi luzeak igaro izan ditu Canigo mendi maiteari begiratuz. Azken urteotan Ameriketan dabil beti musika landurik, 93 urte zitula (AGUR au azaltzean 95 beteko ditu) ONU batasunak eskatuta Pakearen aldeko Kantaldi berezi bat ondua du aundiro entzuna ta txalotua izan dana. Orain Porto Rico'n bizi da Catalaunya aztu gabe eta ezta ere Canigo bere mendi maitea «amb el cim blanc de neu» gaillurra elur zuriz jantzia, «magnolia tantai baten antzo» Verdaguer olerkariaren arabera.

Casals itzal aundiko gizona biotz bera ta esker onekoa izan da beti. Politikaz ezkertarra izanik, errepublika zalea, Maria Kristina erregiña izan zanari maitasun eta atxikimendua gorde zion ark gazte denboran eman zion laguntzagatik.

Aitaturiko iru Paulo izendunen artean, ene iritzian Pau Casals dugu gizatasunez aundiena. Besteen arteari ezer ukatu gabe; ez Picasso «Gernika» kuadroaren egillean, ez Neruda «Nobel» saridun olerkarian, CASALS artzen dut eredutzat eta emendik nere euskal-txapela kenduaz eta burua makurturik agurrik beroena bialtzen diot.

ANTONIO M.ª LABAYEN

ANDEREIÑOAK, EMAKUME ON OIEK! (I)

Gu, beti, euskal ikastolen aldekoak izan oi gera. Eta euskal ikastolak gurean indarra eta ospea artu zezan saiatu eta borrokatu gera. Eta asmo onetaz, bideak urratu, iriki ta asmoak eta jokabideak argitu ditezen idatzi genuan «AGUR»'ek Urrilla'k 30'gnean. «Ikastolak Mintzabide» idazpuruaz argitaratu zuana.

Baiñan, «ikastolaren kontrako lanak dituk auek» esanda lurrera jaurti zuanak eskura eman zioten «AGUR» ori, dirudianez ez da gure iritzi berdiñakoa. Aurtxo baten kasketa izan liteken jokabide ori, baiñan, ez goaz astintzera. Jokabidearen exkaxak aaztutzeko esaten bai-digu!

Illabete bakan batzuek besterik ez dira Lopez Mendizabal'dar Ixaka errikide jakintsuaz ikastol gai onetzaz mintzatzen nintzala. Ikastolak, Tolosa onetan nolaz sortu ziran. Sorketa onetan bera ibilli zan buru-belarri. Siñismenarekin gure izkuntz maitagarria nolaz erakutsi genitzazkean arduraz bizi bai-zan. Primo de Rivera'ren agintaritzapean geunden, ta agintari arteko batzuek, ez gutxien euskaldunak, eragozpen latzak ipintzen zituzten. Ixaka jaunaren ibillerak ez ziran jolasak izan. Aldeko ziranen ta ez ziranen itzal onaren billa jardun zan latz. Aztertu eta astindu zituan bazterrak. Zenbat itz txar entzun ta bizkar-emate iraingarriak ez ote zituan nabari! Baiñan, azkenean, setati eta aspertzeke, borondate obegoko agintari norbaiten laguntza arkitu zuan, ta or lenengo ikastola Tolosa'n... bost aurtxoekin!

O, zoriona! jaioberri ikastola aurrera zijoan... Eta bigarren urtez zortzi aur! Ura garaitza! Ikastolen oiñarria ipiñi genuan. Gure pentsaerara moldatua. Ez ginjoazen iñorenak kontrolatzera, ez bai-zegoan besterik. Oraingo ezkertiarren aitzindariak ez bai zuten aintzakotzat artzen ere euskera...

Bidebatez, Ixaka jauna, gerorako artu zuan iñoiz eskertuko ez diogun lana: aurrentzat liburuxkak idatzi, argitaratu. Dirua gal, baiñan bere jardunean aspertzeke jarraitu.

Eta, onela, Errepublika etorri zanean, Erkala etorri zanean, indartsu zebillen ikastola. Aldi orretan, nere guraso karlatarren politika bideak lagata, beste asmo batek zerabillen mutil gaztea nintzan. Eta ongi gogoratzen naiz, nere garaitz aundienetako bat jo izan nuala, iritxi nuanean nere gurasoei buruan sartaraztea, nere anai gazteenak ikastolan sartu zitzaten.

Beraz, ez gera gaurkoak, ikastol maitasunean. Ama batek aur jaio-berri bat ilko edo biziko dan zalantz eta kezkak nabari izan ditunak, baizik. Eta il edo bizi zalantz ber-bera darabilkigu gaur, ikastola aunditu eta indartu danean. Zalantz baigera, seme txar batek bere jatorria ukatzera datorken berdiñean, ez ote duten nai zenbaitzuek guk sortutako ikastola ukatu dezaten, ukatu bere izateaz, siñismenaren itzalaz eta beroaz. Eta, onekin, euskal erriarenganako maitasuna otztu araziko gaituan sasi-maitasun arrotz eta arroputz bat ez ote diguten itsatsi nai.

Siñisge diranak, euskera ikasteko eskubide berdiña dutelarik, siñismen gabeko ikastolak sortuko ba'lituzteke, ta bertan beren aurtxoak ikasten jarri, ez genukea borrokarik izango. Kristau izateko gure eskubide berdiñaz, aldameneko bidetik paretsu joan giñake nor lenago bide mugara iritxi.

Baiñan, ez. Nere iritziaz, eta ez nago oker ustean, besterik da jokoa. Ez dute aski poz aurtxo bereak siñisgabe izateaz, baizik ere besteenak onela nai. Eta gerora begiratu gaberik, gerta bailezaieteke gaur edo biar, semeak azitzean arpegira jaurtiko dietela, beste aldekoak beren gurasoei bezela kistartasuna, ain progresista izan eta ez zituztela siñismenari buruz jakitun jarri arazi.

Eta zuek, ikastol andereiñoak, emakume on oiek bitarteko artu nai zaituzte. Zuen otxantasunaz baliatu nai dira, egundo arpegi garbiaz sartuko ez lituzteken asmo beltzak gurean sartzeko. Zuek, baiñan, gure ama, gure emazte ta alaben antzekoak nai zaituztegu. Izan zaitezla zuek ikastoletan, guk gure sukaldeko berotasunean gure seme-alabatxoei itsatsi nai dizkiogun fede edo siñismen, euskal maitasun, asmo, elburu eta jokabide-gai erakusketak, gure erriaren itxaropen landare maitagarriak azitzen eta ezitzen ama on baten gixara, gureak eta zuenak onak izan eta alegindu ziran bezela alegindu ko zeratenak.

UXOLA

«GARITAONAINDIA'TAR GOTZON» SARIA

AGUR aldizkari onen 7'garren zenbakian, 8'garren orrialdean, agertu ziran «GARITAONANDIA'TAR GOTZON» eleberri-sariketarako arauak. Iraillaren 30'erako eleberrien aztertzea eta erabagiak artu bear ziran. Apur bat atzeratu egin gara eta erabagiai itxaroten dagozanai parkeske gagoz.

Lenengo saria 25.000 pesetakoa da, eta bigarrena 5.000'koa. Agertu diran eleberri guztien barria eta eurai buruz artu diran erabagiak agertuko doguz lenengo. AGUR aldizkari onetan izentatu diran epailariak agertu dabezanak dira.

1.ª	**EUSKO-ARRANOA**	**130 neurri**	**Estonba'tar Mañuel**
2.ª	**EZPALAK**	**129 neurri**	**Urruzola'tar Estanis (Uxola)**
3.ª	**AUZIA**	**128 neurri**	**Barrutia Felipe**
4.ª	**TXIKI-ZAHARRE**	**99 neurri**	**Zarate Mikel**
5.ª	**SUGEGORRI-KORAPILLOA** . .	**78 neurri**	**Urruzola'tar Estanis (Uxola)**
6.ª	**IVAN ILITCH'EN ERIOTZA** . .	**78 neurri**	**Aregita Oñarte-etxebarria'tar Adolfo**

Lenengo saria Estonba'tar Mañuel'entzat izan da. Bere eleberria «EUSKO ARRANOA» izen-buruarekin agertu da eta kondaira-eleberria da. «Navas de Tolosa»ko burrakaldian euskaldunak izan eben egoerea agertzen dausku. Zorionak bere egilleari. Ez da au berak lortzen dauan lenengo saria.

Bigarrena gure «Uxola»k lortu dau. Bere eleberria EZPALAK izen-burua dauana da. Elebarri ederra au be. Oitura-eleberria da, eta aizkolarien goraberak agertzen dauskuz, baiña beste gai batzuk naste dirala oso aberastuta. Zorionak.

Irugarrena be eleberri ederra da. Felipe Barrutia bere egillea. «Auzia» bere izen-burua. Kondaira-eleberria, gaurkotasunez betea. Bear ba'da, larregi kondairari begiratu dautso eta irudimena larregi ez dau agertu. Baiña ederra da.

Laugarrena gure adiskide Mikel Zarate'rena dogu. Oitura-eleberria, oso gaurkoa. Eleberri au ez zan sariketearen arauetan sartzen, baiña lan egiteko oiñarri on bat izan leiteke.

Azkenengo biak, neurrietan bardiñak, «Uxola» rena bata ta Aregita' rena bestea. Gure zorionak Aregita gazteari be. Ederto egin dau itzulpena. Jarraitu dagiala lanean, pozik artuko doguz bere idaz-lanak. Bere euskerea garbia ta ederra da. Azkenengo bi oneik itzulpenak dira eta gaurkotasunik ez dabe. Baiña ederto dagoz.

AGUR

AZKE-IRRINTZIA IRLANDA'N

Aberri txikiaren bizitzan, erri azkatasunaren alderako bideak latz eta negartsuak izaten dira geyenetan.

Irlandarrak, aspaldiz, burruka gogorrean dabiltzaz inglandarren aurka. Eta erri bi oneik darabillen gudea, ez da jolasetakoa. Batak ez besteak ez dautsoe alkarreri parkatuten, eta egunero odola, eriotzea ta negarra alkarregaz anaituta dabiltza.

Kristo baiño lau gizaldi aurreragotik, Pikto izendun irlandarrak bizi ziran ugarte aretako itxas leorretan. Geroztik, Zeltarrak zapaldu eutsoen euron lurraldea. Gizaldiz geroago, danesak eta normandarrak jaubetu ziran ugarte onegaz. Laster, noruegatarrak ziran irlandako zapaltzalerik gogorrenak eta ganera, Dublin'go uria sortu eta eratu ebienak.

Julio Kesar, kaixerraren aldian, inglandarrak erromatarren azpian bizi ziran. Baiño irlandarrei, ez ziran gudarik emoten ausartzen. 400 urte beranduago, «barbar» izendun gudarosteak Erroma zapalduko ebeen bildurragaz, itxi Inglaterra ta Erroma'ratu ziran kaixerlariak. Erromatarrak joan ondoren eskozitarren agindupean bizi izan ziran irlandarrak.

IV Adriano doipuruak eskubidetuta, Inglaterra'ko II Enrike, jaubetu zan irlanda eta eskoziatarren lurrekin. Eta 800 urtetan irlandarrak ez ziran lo bizi izan azkatasun aldeko burruka barik. VIII Enrike'k, eta bai Kromwell'ek be, euron zigor-agindupean makiña bat negar ta malko eragin eutsen irlandako erriari.

Gaurko egunean Irlanda'ko lurraldea zati bitan aurkitzen da, aberri baten barruan. Euskal-Erriaren antzera. Bat Ulster deritxona ipar aldean. Bestea Eire deritxona ego aldean. Ego aldeko seme onak, burrukan ebiltzan euron aberri azkatasunaren alde. 1916'gnean, izugarrizko iraultza bat izan eben azke-irrintzia ikurtzat artuta, baiña laster zapaldu eutsen irrintzi ori odoletan eta urka mendian.

1921'gneko urtean ego aldeko Irlandari autonomi araudiya emon eutsoen. Bai iparraldeko Irlandari be, inglandarren menpean biziteko eskubidea. Bai-ba, Ulster aldeko biztanlerik geyenak, jatorriz, ingles ta eskozitarrak dira ta ez dabe ardura andirik euron aberriaren azkatasun alde ezer egiteko. Beste erri txikietan ere olakorik asko jazoten da gaurko egunetan.

Irlanda'ko ugartean uskurtz edo erlejiño bi dagoz: «protestantea» eta «katolikoa». Eire'koak aberri batasun ta azke zaleak. Besteak, ulstertarrak, Inglaterra'ren menpean bizi gure dabeenak. Guzurra dirudi alderdi onetakoak irlandarrak dirala esatea.

1949'gneko urtean, jorraillaren 18'an, ego aldeko Irlanda'k azkatasun osoa lortu eban, Inglaterra'ko burestun agerdupetik. Baiña, zoritxarrez, iparraldea ondikarren inglandarren menpean bizi da. Ta gaur ikusten dogun Irlanda'ko borrukearen errudun ziyo ori da. Auxe itsumendia!

Inglandarrak jaubetuten ditun erriak gatx izaten dabe eren azkatasuna lortuten. Or ikusten doguz inglandarrak egin daben Afrika aldean. Esate baterako Rhodesian, zelgeratuten diran an bertako enda eta gizasemea. Kanpotarronen lur ta aberriaren jaube. Zuri gitxiren jaurlaritza agintzea baltz askoren errian. Eta olan noz arte? Ian Smith'en azkatasuna, inglandarren menpetik, zuriyen alderako eragin da, ez baltzaren onerako. Eta egite ori ez da iñok onartzekoa. Inglaterran bai. Olakorik asko dauko, erri kaixenonek, eginda ludiko ingiru guztiyetan.

Gaurko argitasun ta aurrerapide danak gizonaren artean ainbatu bear dira. Eta ezin da iñor jopu euki, bastertuta, o baltza, oriya zeiñ zuriya. Lortuten diran eskubideak dirurentzako bardiñak izan bear dira. Onetara mundu guztisenideak bizi deyazan. Emon ba bakotxari berea, eta laguni alkarreri, erri bakotxa bizi deyen bere erara, bere izatera, olako lanaren egintzaleeri, gizon osoaren izenaz deituko ya ez iltzale edo saltzalea.

Emon ba gizon eta errieri euren eskubide ta nortasun azkatasunean.

URKIDI

AGVR

III URTEA
28 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1972 - URTARRILLAK - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

LOITZUN

Loitzun erri polita da. Bere ondartzea, bere etxeak, bere kaitxua... dana jaku atzegin, dana dogu maite.

Baita erri gomutaz betea be.

Bertako gizonak ameslariak izan dira, baiña ez amets utsetan bizitekoak, euren ametsak erri-zaletasunak eragiñak izan dira eta Erriak ori ondo daki.

Erbestetik etorritako asko batzen dira an, batez be udaldian. Ba jatorko ortik beretasuna galtzeko arrisku aundi bat, baiña erriak beretasunari eusten dautso eta garailari urtengo dau. Gatx izango da, baiña itxaropena ezin galdu.

Euskaldun batek baiño geiagok an negar egin dau. Maitemiñez batzuk, Iparragirre'ren antzera, atzekabez beste batzuk, baita pozez be, erri-miñak eraginda. Euskalduna beti izan da erri-zalea ta samurra.

Antxe azken-agurra egin dauskue erri-zale txalogarri askok eta agur onek gomuta sendoak dakarskuz.

* * *

Europa'rantza goazanean bera dogu zubi, andik artzen dogu geure bidea. Eta Europa'gazko artuemonak ondo bearrezkoak jakuz. Artu-emon oneik ba dabe euren kondaira argitaratu bearrekoa eta, geroari begira, itxaropenaren argi-izpi bat dakarrena.

Gizarte osoak batasun batera jo bear dau, zuzentasuna oiñarri dauela ta Errien bardintasuna konturaturik. Nondik asi? Europa'rantza lenengo oinkadea.

* * *

Ba dago, baita, erri orretan erri-agintaritzaren zaletasun bat. An diranak, negu ta uda bertan diranak beintzat, gizonaren nortasuna aintzat artzekoak dira. Eta gurari bizia, nortasun orretatik batasunera jotea da: sendian, Errian, aberrian eta aberri-arteko alkartean.

Elburu oneikaitik nekeak artzen be ba dakie, iñoz artu bakoak ez dira. Beteko al dira gurari bizi oneik eta neke oneik onurakorrak izango al dira.

* * *

Iñon baiño geiago bear ba'da, ainbeste eratako jentetza dagon erri txiki baten, alkar laguntza bear da. Eta au ba dago, gorabera aundiakaz ba da be.

Gero gizarte-auzian argi-billa dabiltz eta ez bide bardiñetan. Egingo al dabe onetan be aurrera-aldi sendo bat, batasunerako ain bearrezkoa dan aurrera-aldia.

Loitzun'dar guztiai agur bero bat. Joan diranai eta oindiño geratzen diranai. Anaiak gara eta anaitasunaren ezaugarri gure izkuntzea, gure izakerea, gure oiturak eta gure elburuak izango dira. Eurentzako gure goraintziak eta eskumuiñak.

AGVR



MIINGAIÑEAN

«Nigaz ez dagoana nire aurka dago», Kristo'k esan eban. Orain Kristo'gaz nor dagon, osoan, utsik barik esatea, gauza erreza ez da. Maisu onekin artu-emonean, ondo egoteko, jarraiko baldintza —kondiziño— onek bear bearrekoak ditugu: Kristo'gan siñistutea, Arekin itz egitea ta gure egiteak Aren irakatsi ta bizikereagaz, ondo eta bizitasunez, gure bizitzako jokabidetan egiztutea.

Azkenengo denporaldi onetan ardura aundiak dabiltzaz Kristo baztertu nai ukatzeko. Lagun batek bere burua banatu legike Kristo'ren siñismenetik. Au iñori ez dautsat opa. Baiña milla eratara, nai itzez nai periodikuz beste batzuei, askatasun eta eskubide osoz daroen siñismena galdu eragiten ibiltea, ez derittzat zuzena.

Gaur egunean agiri dan jokabide onetan jende zeiaren uste ona ondatu bearrez al dabiltzaz? Norberak baiño gitxiago dakiela uste danari aundikeri batzuk bota ta kalte egitea, ez da gaitza. Beste batzuetan, demagoji petral baten bidez lurreko edertasunak jarten dautsez aurrean Kristo'ren irakatsia gizontasunaren aurka ba'lego bezela. Onan dabil batzuen jakituria, Euskal-erriari gizaldietako Kristo'ren siñismena, erritartasuna ta gizontasun jatorra kendu nairik, ete.?

Lagun biren arteko adiskidetzak, lenengo eskatzen dabena siñismena da. Lagun biak, batak bestearen leialtasunean siñistu bear dabe. Zintzotasun ori oiñarritzat arturik, batak bestearenganako uste ona izanik adiskidetasun sendoa sortu ta biziko da lagun leial orren artean.

Euskal-erriak menderen mendetan Jainko ezilkor ta maitetsuagan siñistu dau. Gizona bakarrik ez da izan naikoa, gizonaren bizia azaltzeko euskaldunarentzat. Orain agertu dira, bat batean, etsipen bidegabekoz ta amorru zitalez gaiñezka ba'legoz bezela, Jainko siñismena gure lurretik kendu nai dabenak.

Gure euskal-asabak siñismenari ta erri maitasunari eutsi eutsen. Ta baita erri onen jakintza ta aurrerapidea eurek zabaldu eben giro onean.

Bigarren; gizonak itz egin bear dau bere antzekoekin, orretarako jaio da-ta giza-seme. Itz-bide barik ez genduke ez gizontasunik ta ez aurrerapiderik. Era berean, euskaldunak itz egin dau bere Jainkoarekin etxean bezela euskal lurraren edozein ataletan, itxasoan, mendian eta lantegian.

Irugarren; orain artean euskal-gizonak, egitez be, bere gizontasuna ta siñismena, sendoro, agertu ditu. Gure guraso ta aurrekoen bizia erreza ez da izan lurrean. Burrukarik aski izan dabe. Buruz eta besoz, ondo, negurtuak izan dira aren almenak. Baiña gaiztasunetan etziran koldartu ta bizitzako arazoei arpegia, gizonkiro, emon eutsen. Gogorkeriz artu zituenean, etziran amorruz jantzi.

Gure aurrekoak ta aren jarraitzaille direnak, askok eta askok, Jainkoa maite izanik, era berean erria maite dabe kemen osoz ta odol beroz. Gauz bi onek ezin eikiezan eta ezin ditue, iñola, banatu. Ori dala-ta, erriaren bizia edertzen, zurki, alegindu ziran eta dira, len eta orain, ta erri jende langillediaren arazoa, jakituriz zuzenduta egoan, aldi aretan ezagutzen zan beargintza zuzentzarik onena bezela.

Ori da gizontasunari erantzutea ta Jainkoari men egitea. Anaiaren onaren billa dabillena, ori ongillea da, jende zeiaren laguntzaillea siñismenaren bidetik doa. Gaur ostera beste bide batzuetatik joan gura da. Jainkoa kendurik, baiña era batera doaz baztertzen baita be, gizontasuna, maitasuna ta gizarteko artuemon bidezkoa.

Naus keria, gogorkeria ta dirukeria mundutik kendu nai dira ta kendu bearko, jendea albait ondoen bizi dedin, ta gizonak bakarrik ezin dau ezer egin. Lengo zuloak kendu nairik, zulo bardiñetan sartzen, dira, sarri, gaurko gizonetarikoak. Nor bear da? Baztertu nai dan uraxe berbera argi ta garbi ta gogor.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

BILDURRA TA GORROTOA

Gorroto bako gizonak ezagutu izan ditugu, ez baiña bildur bakorik. Nork esan ete-legike iñoiz bildurrik izan ez dabela? Makalak edo gogorrak, geienok igaro izan ditugu bildurrak eragindako estu-aldiak, eta ori ez da lotsatzekoa. Lotsagarria beste zerbait da: bildurra estaldu nairik, arro-putz eta agobero agertzea.

Erri-arazoetatik, bildurrak eraginda, iges egindako gizonak gaur ikusten doguz, urrunetik edo arrisku bako estalpetatik lengo adiskideeri arrika; iraiña, guzurra ta esamesa, euren buruak zuritu nairik, zabaltzen.

Errakuntza aundirik ez genduke izango, Bangla-Desh edo gaur —ta len— burrukan dabiltzan erri geienetan, aberekeri, bengantza ta erailketa iguingarrienak egiten dakienak bildurtienak izaten dirala uste ba'dogu. Gudan edo eguneroko ekintzan, aurrenengo tokietan barik, atzean estalduta ibilli dabiltz. Olakoak izaten dira menperatzaillerik biotzbakoenak, gorroto aundiendunak, azpiratu daben etsaiari edozer egiten ausartzen diranak; euren koldarkeriaren urteera zitala.

Eleizkizun eder baten izan gara oraintsu. Gizon jator, trebe ta zintzo baten illetetan. Eleizara bideko gure oin-otsa, Kantauri'ko itxas asarratuaren orruekin batera entzuten gendun, bitartean, zenbat oldozpen gure burura!

Gizon aren irudia, burutik kendu eziñik nekarren... zer opari erriarentzat norberaren bizitza osoa baiño? Giza-legea gordetzen saiatzen dan gizonak ez dau sarritan, mundu onetan, esker-onik izaten. Baiña alakoak izango dira erriarentzat eredu ta ezaugarri. Arritzekoa da, baiña alako gizonakaitik amaika txepelkeri entzun eta irakurri izan doguz. Besterik asmatu eziñean «momia» ta beste olako iraiñ ganorabakoak... baiña, noren agotik? Kementsuen agotik ez, naizta iritzi ezbardiñekoak izan. Kementsuak, bulartsuak ez du urko-laguna, errikidea, orrela iraindu-ko, ez. Baiña, bildurtiak, sapoak eta labanak, bai; bere burua narrutsik ikusten dau-ta; gizontasunik barik.

Giza-legeak eskatzen dauan errespetuak eraginda, iritzi askotako gizonak, fededunak naiz siñisgabeak, alkarturik ikusiko dozuz olako eleizkizunetan. Fededuna zan gure gizona; ona, zintzoa ta txirotasunean bizi zana. Egiaren alde beti gertu; guzurraren aurrean beti sututa. Eta zenbat bider sutu bear bere erritarren artean giza-legea galtzen joiala ikusirik... baiña ez eban iñoiz gorrotorik izan, ez zan bildurtia-ta.

Etxeko ateak danontzat zabalik, naizta esker-txarreko asko ezagutu! Danetariko kementsuak ikusi genduzan, ez baiña bildurtirik, ala bai? Baietz esango neuke neurri baten, damututa ete? Bai bear ba'da... ala burua erakusten? Guzurrak eta esamesak zabaltzeko diru-laguntzak bear izaten dira, ta laguntzaille orreitakoak, banakaren batzuk be, an ikusi genduzan... eta alakoak ez dira damutzen, alakoak azalera atera bear dira!

Ta arduratan nago. «Olakoeri» esker, euskaldunen artean gorroto larregi zabaldu da, ta zabaltzen da. Gauzak argitzeko eskubiderik ez dogun artean, guzurrak lurrunduko dausku giroa, guzurra nagusi! Esameseri erantzun ezkero, iñoiz ez genduke amaituko, suari egur geiago botatzea litzake, ta batzuk ori nai. Jaramonik ez egiteko eskatzen dauskueneri entzutea obeto izango dala uste izaten asi gara... ez dakigu baiña noiz arte. Bildurtiak ez dira ixilduko, ez dago bildurra baiño gorroto-sortzailleagorik-eta. Demagoji utsean errezena da norberaren burua erakutsiz, goiko mailletan agertzea, baiña barruko arazoak ondo ezagutzen doguzenentzat «barregarriak» dira bildurti orreik.

Zoritxarrekoa Euskal-Erria olako asko sortzen ba'jakoz! Bangla-Desh, Biafra, Vietnam eta beste erri askotan lez, oneik izango dira su-emoilleak, anai-arteko burrukeari eutsiko dautsenak, atzetik. Aurrez-aurre begiratu ezkero «ezin-esanez» dardaraka jarriko diranak, baiña azpitik, ostetik edo maltzurkeriz irainduko zaituenak.

Jainkoari eskerrak, elduko da egia, Egi aundiaren eguna, ta orduan, pizti orreik aaztuta, emen aipatu dogunaren antzeko gizona artuko dogu eredutzat: apala, zintzoa, anaikorra ta errizalea: EUSKALDUNA.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

GURUTZEBIDEAN GURUTZETUA

Euskera «bidegurutzearen gurutzebidean» omen dago, ta esateko erarengatik errez asmatuko fraille baten itzak dirala. «Bidegurutze onetan nora jo beldurrez egon bearrean, «bide ederrak utzita, bide bakarra» aukeratu bear omen degu.

Bide eder oiek, noski, euskera gozo ori omen, «baserriko eta itsasoko jendeak bakarrik izan bait du gozatzeko eta leunizeko astirik. (Neolitikotik hasita...)».

Baiñan «nekazari eta itsasgizon, geroz eta gutiago dira euskal populazioaren barnean» eta orrela «lot ote genezake euskera baserriari nahiz nekazari girorari?» Beraz «euskera kaletartzen ari direnak euskera gogor batez datozkigu gurutzebidera», beren bidetik jo dezagun eskaka. Eta baserritarren ta itsasgizonen euskera mexpretxatu *ondoren, «Kant eta Toynbee, Einstein eta Hasley, Heisenberg eta Plack eta Freud eta Barth euskeraz emanik euskera salbatuko digun bidetik abituko omen gera». Nork irakurtzeko? Ene! gure jakinduria!*

Baiñan, egon apurtxo batean, euskerari bere gurutzebidean jarraitu nai bai-diogu. Arritu ere egiten bai-gera, euskeraren goxoa xurgatu degun kaletartu gabeko kaletarrok, nolaz euskaldun batek lurperatu dezaken, bere amatxok biziarekin batera eman zion euskera zoragarria, baserrikoa.

Guk, «Teolojia, Linguistika eta bestelako Zientzia konkretoak eta batezere astraktoak» ikasten zentzua galdu ez degunok, mundolojiaz apurtxo bat ba-dakigu, edo ba-degu almen beste izkuntzen gurutzebidetara begiratzeko.

Eta ez degu iñun ikusten gizon orren esakeraren agerbideren bat. Zeatzki gaztelerari buruz jardunik, ez degu nabaitzen erdera bat arrantzaleentzat, beste erdera nekazarientzat eta beste bat kaletarrentzat. Ikusten degu bai, erdera bat dutela guztientzat, eta arrantzale batek, izkuntz oiñarri bereaz, itsasgizonak ezagutzen dituan itz teknikoak erabiltzen dituala; beste orrenbeste nekazariak, edo burnigintzakoak, edo arotzak, edo matematikoak, edo sendagilleak...

Kaletarra jaio naiz eta erderaz jakiñik ere bizkarra ematen diet Einstein baten erakutsiei. Ez det bere bearrik izan euskaldun nabaitzeko eta euskeraz gozatzeko. Gizon aundia izaki, baiñan ez naiz zoratuko aren liburuetan murgildurik, bakoitzak bere maillean ibilli bear ortaz. Gutxiago murgilduko naiz Einstein euskeraz irakurtzen, arestian euskerara biurtutako gai errezago bat irakurtzen asi baldin ba'naiz, eta gogaikarri eta aspergarri idatzia zanez lenengo zatia bukatzeko almenik izan ez ba'det. Eta euskeraz irakurtzen zerbait oitua nago... baiñan ez euki Santiago'ren zaldiarenak.

Jakintsuen lanak euskeratu ditezan aurka ez nazute, kontu! Leen ere «milagrista» auen aurretik, Zientzia gauzak euskeratzen jardun zitzaizkiguten. Eta orduan txalotzen nituan bezela, oraingoak ere txalotuko nituzke. Bat adierazteagatik: Zinkunegi sendagillea jardun izan zan Sendakintza itzak euskeratzen. Zuen eskerrak nolakoak izan dira? Ara, auek neologismoak, «terminachoak» erabiltzen omen zituzten, eta au diotenak, Baroja batek aitatutako «latinatxoaz» beren buruak jakintsu azaldu eziñez, «erderatxoak» dakarzkigute barra-barra...

Baiñan Zientzia itzak, batzuenak eta besteenak, zientzia bakoitza ikasten ari diranentzat dira egoki. Sendagille-gai diranak ikas bitzate sendakintz itzak; Einstein'enak fisika ikasleak, eta abar.

Nolaz baiñan sartuko dizkiogu jakintz auek danak kaletarrai, erriari, erri orrek izkuntza gorde eziñik dabillenean? Euskera erreza eta gozoa erabillirik ere? Kaletarra beia ba'litz ara or beia baiño lenago erosi txintxarria. Orrela litzake, edo baztarrak nazkatzea...

Zientzia ere bai. Baiñan goazen poliki-poliki. Oiñarriak jartzen, Arrokeriak bide motxa bait du. Erakutsi dezaiogun lenengoz erriari izkuntz ori, baserritar, arrantzale, kaletar, eta jakintsu eta arloteena, guztiona degun euskera. Euskera bat da guztiontzat. Jakintza mail guztietarako oiñarria dan euskera.

Batasunaren izenean ezin ditezke baserritarrak eta arrantzaleak kaletarrengandik banatu. Euskera bat degunean ezin diteke «laboratorioan» beste berri bat asmatu. Ez eta idazteko izkuntza bat izan, ta itzegiteko euskalkiak. Itza ta idatzia bat bear dute. Ez degu orrelako «batasun» arrigarririk ulertzen. Madrid'eko edozein izparringik uritarrentzat eta nekazarientzat idazten du. Jakintsuentzat ere bai. Ortik kanpo ba-dituzte gai bakoitzeko aldizkariak.

Jakintsukerian edo txilborkerian erortzen danak soil-soillik ez du ikusten bizitzan mailla asko daudela eta nork bere maillean ibiltzea dagokiola. Bestela, euskal irakurleak lau katu baldin ba'gera, iru katu izatera jetxiko gera. Eta Loreillean bi katuk baiñon zeregin gutxiago dute, aparrezko teillatu gaiñean, beren txilborren edertasunaz zorabiatuta dantzan dabiltzan iru katuok...


Arrokeria, itxumena eta gorrotoa, Arana Goiri' renganako gorrotoa, izan ditezke «bidegurutzearen gurutzebidean» euskera gurutzatuko duten iltzeak.

Euskera, gurutz onetan lotu baiño lenago pentsa dezagun. Alperrikakoa izango bait da gero Kristo'ri bezela gurutzetik jeixteko eskatzea.

Bere ao ixillaren ordez gure konsientziak erantzungo bai-liguke:

Consummatum est!

OLAZABAL'DAR XABIER



Aditz jolasean?

EUSKALTZAINDIA'REN ARAUDIARI BURUZ ESKUTITZ IDEKIA

Agur Batzarkide:

Euskaltzaindia'ren araudia, gaurkotuz, aldatzeko erabakia aspaldi artu zenduen; alkarte ortako lege-gizonen eskuetan aldakuntzak eta arau barriak gertatzea itzirik. Nik dakidanez, azken ikutuak egin ondoren, Euskaltzain-buru dan. A Villasante'ri bialdu eutseezan araudi-aurrerapenak. Baiña zuen artean zabaldu dan beste araudi-gai ori, ez da lege-gizonak gertatu ebena, Aita Villasante berak, edo lagunen batek aukeratutakoa baiño. Zertarako dira, beraz, lege-gizonak? Alperriko lana egiteko ala beste orri lege usaiña emoteko?

Araudi-gai orretan, jakin dogunez, araurik arrigarriena, «osokoak» erabaki garrantzidun bat artzeko bear izango diran zertzeladena da: batzarretan SEI bakarrik alkartzea naikoa izatea!

Guztiok dakigunez, autarkidunak ogetalau zaree; beste alkarte geienetan lez «erdiak eta bat»ek auteskundean izatea litzake erabaki garrantzidunak giza-lege indarra izateko. Au berau da, jakin dogunez, euskaltzain askoren iritzia, ta uste dot, zuen iritzia, gaiaren garrantziakin oarturik, sakon aztertu ondoren emongo dozuela. Beste era batera jokatzeak ondoren au izango leuke: 24 autarkidun eta 150 laguntzaille dituan alkarte baten iritzia, izkuntza baten arduradunen iritzia, IRU gizonen askuetan itziko litzakela; gero, erri osoaren abots indartsua lez agertu ta sartuko litzakela...

Beraz, zentzunez ta argi-emoille lez jokatuko dozuela uste dogu, Euskaltzaindi ta euskeraren onerako. Bestela, erdalzaletasunari jarraitzen «Euskaltzaindia is different» esan bearko genduke.

Esker erakutsiz,

ARENAZA'TAR JOSU

POZAK ETA KEZKAK

Euskaltzaindia errespetagarri izatea gaur nai dutenak, besteak errespetatzen ikasi bearra dute. Nola? Nortasun berezia goralduaz, eta taldekeri txikietan sartu gabe. Euskaltzain osokoen lana da, jakiña, idazkaritzari egoak pizka bat laburtzea. Ikusten dogunez «eiña eiñ» edo «hecho consumado» dalako orren aldeko asko dago, ta euskaltzaiñak oartzen ez ba'dira, alkartearen etorkizuna «eskribauen» eskuetan izango da... gero zer?

* * *

Sariketa batzuen azken epaiak barregarriak izaten dira. Ikusten dogunez, arauak alperrikoak izaten dira. Literatura sarian, bost illabete lenago argitaratu zan lana izan da saritua. Zertarako arauetan dagon ezizenez izenpetu bear a? Euskaltzaindian jasotzen danik ez da iñun jazoten. Gero, Gazeta'n argazki ta guzti agertu, iñork atsera egin ez dagian. Lotsagarria benetan, eta ez epaimaikoentzat bakarrik, lendakari agertzen dan ber-berarentzat baiño... Gero, itz gozoak, eta minduari «zapi beroak» ipiñi nai izatea, maltzurkeri utsa da!

* * *

Intsentsu S. en C., kapital bakarra, lurrun-ontzia; akzionistentzako dirua, larregi dauken lo dagozan batzuena; zorrari orixua; patente bakarra, firi-faria, ik neri, nik iri, zirrin-zarran...

* * *

Oraindik euskerarik ikasi ez daben laguntzaille bat dabil or zear, mundu guztiari kontuak artzen. Ezker-eskumako etiketa banatzaillea dirudi, edozer tentelkeri esanaz. Len «Etor» eko argitatzailleeri, gero «Euskerazale» koeri ta azkenez Eleizeari berari, lotsak emoten asi jaku. Zer dala ta? Berak edo bere lagunak asmatutako «euskeranto» ari jarraitzen ez dautseelako. Korretorerik ez ba'lego, orrek idatziko leukez idaztekoak! Aipatu doguzan alkarte orreitan bere mainizanikoak dagoz, baiña «euskeranto»an, jakiña, bera nagusi, ta ez dago morroi ori iriduko dabenik! Euskaldunak, ezkerrean ez ezkuman banandu ditu. Bera, aurki, erderdian geratu da. Ala ba, ekin gogor, baiña ikastolen alde gero!

* * *

Euskaltzaindiko arauak aldatzea ez dedilla izan asmo okerreri «zubi» egiteko. Oraingoz beintzat, euskaltzain jatorrak, arrapatzakan barik, astiro aztertzeko giroa sortu dabe, esan dauskuenez. Orrela izan dedilla, begiak eta belarriak zabalik!

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

AZKATASUNA ZERTARAKO?

Gaurko gaztediaren ezpaiñetan, itz asko erabilten dira. Batzuk politak, beste batzuk ez ain politak. Itz oiek oso bogan dagoz gaurko egunetan batez bere. Nork ez dau entzun gazte baten agoz «azkatasuna» esaten? Nik be askotan entzun eta esan dot itz polit ori. Azkatasun antzia oso erreza dogu; baiña itz onek dakarren sakontasunean oso gitxi saiatu gareela iruditzen jat. Ez al da egia, adizkide?...

Gazteok AZKATASUN EGARRIA beti izan dogu. Egarri itzela, egarri ezin asea. Mota edo «klase» askoren azkatasuna eskatzen dogu: norbearen azkatasuna; gizartearen azkatasuna; idealismo guztien azkatasuna; erlijioaren azkatasuna; aberrien azkatasuna... eta abar. Eskatzea erreza dala danok dakigu, lortzea zailla dala be bai. Baiña askok uste dabe, azkatasuna (mana bezelaxe) zerutik eroriko jakula gure aldetik pauso bat emon barik. Eta olako azkatasuna ez dago egiña; GUK LORTU BEAR DOGU egunero, illero, urtero... Ezer ez ba'dozu egiten azkatasun ori lortzeko, noren baimena dozu frutu ori meresitzeko? Azkatasuna ez da jostaillu bat; gauza baliotsua baiño gizonen bizitzan. Ia konturatzen garan!

Azkatasunaren lenengo mailla, norbera azke izatea da. Egizko azkatasuna zugandik asten da. Adizkide maitea, eskua biotzean ipiñirik... AZKE ZARA? Zuk jakingo dozu... Azke ba'zara, jarrai billaketea; baiña loturik ba'zagoz... GELDI! Jarraitzeak arrisko aundia ekarriko leuke-ta.

Norbera azke izatero norberetasun edo «personalitatea» eukitea nai ta naiezkoa da. Zuzenduak diran jentetzak ez dira azkeak; ez dute azkatasunik. Bakoitzak bere iritziak euki bear dauz, besteei jaramonik egin barik. Askotan gure (?) antziak, asmoak ta itxaropenak ez dira gureak; besteenak baiño.

Bigarren maillea oso edatu edo «extendiduta» dago: sendian; lagunetan; auzokoetan; Errian eta abar. Nik galdetuko nuke: Zelan aberri baten azkatasunagaitik deadar egin eta gero sendian «diktadore» izan?... GAUZA OIEK EZIN DIRA ULERTU, TA GITXIAGO ONARTU!

Zure azkatasuna bukatzen da... bestearena asten dan unean. Eta ori ez dogu argi ikusten (edo ikusi nai). Erriak, aberriak, idealismoak eta erlijio guztiak gizon askoren zenbaketak dira; eta orregaitik erri baten azkatasuna alperrikakoa izango litzake erri ortako gizonak ez ba'litzakez azkeak. Azkatasuna ez da egoera bat; azkatasuna pakearen frutu da. Eta pakea, maitasunean dauka oiñarririk sendoena. Zu azkatzen ba'zara eta besteen azkatzaille izaten ba'zara, lortuko dozu egizko azkatasuna. Bai orixe!

Azkatasuna zertarako?: gizonago izateko, ez nai doguna egiteko; azkatasuna gurea da, bai, baiña egunero agertu bearko dogu. Orregaitik, deadar gitxiago azkatasunatzaz eta egite geitxuago. Azkatasuna! Azkatasuna! Azkatasuna! entzutean; askotan galdetu naz: zer dira, gizonak ala txakurren zaunkak? Erdaldun idazle batek, argi ta garbi esan dau: «Errukigarri jataz artaldean doazan jentetzak!»

EZKAURIATZA'TAR XABIER

ESAKERAK

1.—Emakumea erantziten dauanak, gitxiago ezagutzen dau jantziten dauanak baiño.

* * *

2.—Emakume bi lagun aundiak?
Noretzaz ekingo ete dabe?

* * *

3.—Urteak kentzen dituen emakumeak, euren lagunai geitzen dautsoez eta orretara neurria zaintzen dabe.

* * *

4.—Emakumeak beti dagoz prest, edozer egiteko... baketan itxi ezik... maite daben gizonagaitik.

* * *

5.—Bat edo bestek, maitasun batetik askatutea nai dauanean, beste maitasun batean jausteko da.

* * *

6.—Maitasuna suaren antzekoa da: Kanpokoak kea ariñago ikusten dabe, barrukoak sugarra baiño.

* * *

7.—Maitasunak, beste antz bat be ba'dau suagaz... eta ezkontzak suaren kea dirudi...

GARATEA

NUNDIK NORAKOA - XVII

ARTABURU BIKAIÑA

Ikusi dituzue artaburu-saillak, bete-beteak, ugariak, ederrak, begi ta barne-betegarriak? Langillearen izerdien itxaropena oi dira euren arloetan. Nekeaten ondoren igali bikaiña dakarre baserritarrentzat. Artaburu galantak, lurraren apaingarri ta etxearen aberasgarri!

Alaz ere ikusia dot nik bat, bakarrean azita, besteak ez lakoa, beste guztiak baiño mardulago ta bikaiñago: gure gogo-zuzendari don Venancio utsa ta putza.

Lengoan aipatu dogun BIZI euskal-itzulpena zabal-zabal ebillen gure ikaskideen artean. Ta gure ikastaroko Etxeberria'tar Andoni'ri bururatu yakon andixek egin bear ebala gogo-irakurgaia egunero arratsaldean. Artu idaztia besapean ta an joian poz-pozik eleizatxora irakur-aldia egitera. Baiña gure on Venancio kaikuari ara zer etorri yakon burura:

Idazti aretatik irakurtea, galazo egin eutson gure mutillari. Arrazoia? Itz berri bat edo beste aurkitu leikeala-ta, barreiatuko ote zan bildurrez ta irakurketa egiteko Teresa Deunaren idazti trinkoa artu-erazo eutson. Mutil gizajoak, bildurraren, jaramon egin euston eta Avila'ko andrazkoarena artu arin euskerazkoa baztertuz. Ene bada ta ni! Euskerazkoan itz berri bakan bat aurkituko ebalakoaren aitzakiaz euskuetatik kendu ta aren ordez Avila'ko Teresa Deunarena artuazo! Segura'ko baserriko mutil gazteari errez egingo yakon, bai ziur, españolaren textoa. Gaur egunean ere, astiro ta berrirakurri egin bear da askotan, ezer probetxuzkorik ateratzeko ta kontuak atara sasoi aretan. Ogei urteko baserritar batek eskuan Santa Teresa dauala zer egin bear dau? Itz erdiak ulertu ez ta beste erdiak okerretara aita.

Alaz ere, Santa Teresa... egokia zan... gogo-irakurgaia egiteko ez ba'da ere, euskal gogoa iltzeko bai beintzat, eta kito.

Ez uste onenbestez artabururik andiena ikusi dozuela. Are mardulago ta ustelagoak ere ba-dira ta banan-banan zuen begien aurrean ipiñiko ditut aurrerantzean.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

BURRUKA

Gabean lo egiteko asmoakin, oiean gure gorputza erortzen usten degu, egun guztiko lanaren ordaiñez, atsegingarria izaten da benetan guretzako.

Ikusi izan oi ditut ordea, gabean, otzez, bustirik, kale iskiñean; zenbait gizon lotan. Gertakizun au, gizonentzat utsa da. Kale iskiñean diru eske, eskua luzatuz dagon eskaleari limosna ematea bezelaxe.

Utsegia dago gure bizitza; normalegiak izaten dira gizonontzako gertakizun asko: Esate baterako: Emakume etxeak erekitzea; zakur ederrena nor den jakiteko txapelketak eratzea; ol edo pabriketatik langillea kanpora bidaltzea; kiniela eta loterien eskuetan gure suerte eta etorkizunak itxarotea; televista, etxeko leku ederrenean ipintzea; bideetan gizonak eri ikustea; modan dagoelako euskeraz mintzatea. Eta zenbait gauz geiago?, deportea egin, patatak jan, puntu geiena ematen ditun jaboiak erosi, liburuak gelak edertzeko arkitu...

Urte berrian gaude, baiña leen bezela jarraituaz, ezin iñolaz ere urte berria deitu, zaarra baizik.

Naiz oiera joatean eta berdin eleiz barruan, ostatuan, dantza lekuan, lantegian edo mendi gaillurretan, nun-nai arkitzen gerala, pentsa dezagun milla bider, bein ta berriz ez gerala utsak, aragi ta espirituzko gizonak baizik. Ez; gu bide ortatik ez goaz, utikan utskeriak, oien ordez eginkizun sakonak maite eta nai ditugu.

Igarotako egunetan, Jesus'en jaiotza dela aitzaki, gureak egin ditugu; txanpaiña edan, naiko builla eta karraxi atera, ezin ordainduko ditugun apariak egin... eta zer geiago? Kristo etzan kasualidadez gurutzean il, burrukalaria zelako baizik.

Egin dezagun burruka gaurtik aurrera, lana egin, jan eta edan, lagundu denak aukera berdiñak jasotzeko, zaindu kultura, jaso erria eta zabaldu Euskal-Erria.

Zertarako bestela gizon?, zertarako ludi ontan bizi? Itxaropenik gabe, dena berdin zaigula, ez da ez guregaitik ezer aldatuko, isatsik gabeko abereak biurtuko gera eta kito.

RAMON ZAPIRAIN

EUSKAL HIT PARADE



LOTAZILLERO NEURKETEA

Lexona'ko «San Juan Bautista» abesbatza irabasle, bere «Mesias Sarritan» abestiagaz, grabaziñoa «Movieplay» etxeak egin dau.

Au da amar lenengoen zenbaketea:

1.—«Mesias Sarritan» Lexona'ko San Juan Bautista abesbatzak abestua.

2.—«Markesaren Alaba» Urretxindorrak.

3.—«Orrela doa mundua» Enbeita'tar Jon'ek.

4.—«EZ» Egileor'tar Zorion'ek.

5.—«Gau erdian soñua» «Unai» irukoteak.

6.—«Aurtxoa seaskan» Luis Mariano'k.

7.—«Ezin aztu», Luis Mariano'k.

8.—«Itxasoko Erregea», Algorta'ko Biotz-Alai'k.

9.—«Aurra seaskan», Urretxindorrak.

10.—«Ipuin biurria», Xabier Madina'k.

Lexona'ko abesbatzak ondoren txalogarria izan dau, il onetako irabazikeran. Erriak ederto erantzun dautso biribil barri oneri, gure zorionik beroenak talde onetako zuzendari ta abeslarieri, baita «Movieplay» disko etxeari be.

Enbeita'tar Jon'ena abegi onagaz artua izan da, amabosterokoan 2'garren egoan, eta il osoko zenbaketan 3'garren geratu jaku, zorionak Jon.

Luis Mariano'k eta Urretxidorrak, amar lenengoen artean abesti biña daukeez. Luis Mariano'k, bere «Ezin aztu» abesti zoragarriagaz urte osoan lenengo mailletan iraun ondoren, oindiño apur baterako daulaka uste dot amar lenengoen artean.

Urretxindorrak be, aurrenengo ikusiko doguzela barriz uste dot, euren «Markesaren alaba» abestiagaz. Zorion, laugarren geratu da il onetakoan, bere abesti barri onen izena «EZ», abesti barri polita ta gora egingo dabena. Onen barri aurrerako zenbakian argitaratu gendun.

Il onetan geien saldu dan diskoa, «Euskal Meza» izan da. Zorionak.

Ona emen lenengo dagon abestiaren itzak:

Mesias Sarritan

Mesias sarritan agindu zana,
aingeru artean dator gugana.
Gloria zeruan, bakia emen,
kantari dagoz aingeruak Belem'en
Belem'go portalian, negu gogorrian,
jayo da gure Jesus, askatxo batian.
Estalki barik dago, abere artian,
guztiz altsua dana zeru ta lurrian.
Antxe dago gure Jesus, antxe dago, bai.
Aurtxo txikia askan dago.
Amak esautso lo eiteko,
baiña aurtxoak, begiekin,
esaten dio: ama ezin.

Umeentzako ABESTI SARIKETEA

BILBO'N

Joxe Mari Ares zanaren omenez, «Parque Infantil» deritxon jolas-tokian, jai aldi au ospatu da, euskeraz eta erderaz. Au izango da bierko abeslarientzako bide barria: umeentzako jaiak gertatu. Aurrera ba Juan Manuel, ta gure zorionik beroenak sarituerí.

LOURDES TA XABIER

KONTU KONTARI

ALKAR-IZKETAN XV

EZTABAIDEA DALA-TA

—Zer deritxok, Manu, «eztabaidea»tzaz yardunaldi bat egiteari?

—Ederto, mutil, zeozegaitik esaten yabek eztabaidatik «argiak» urtetan yoala.

—Batzuetan bai, baiña beti ez ñeukek esango, sarritan «txatarrak» urtetan yabek eta.

—Ori be yazoten dok, baiña bakik zergaitik? Katuari bosgarren ankea billatzen zaleak doazalako, baita besteen eretxien aurka egiteko griña dabelako be bai.

—Olango batzuk neuk be ezagutzen yoazat. Ik «bai» esaten ba'dok, «ez» erantzuteko beti gertu doazanak, eta besterantza be bai. Orreik izaten dozak eztabaida zaleak.

—Olangoak be, bearreko diranik ez ñeukek esango, baiña erabagi gayetan «argia» billatzeko naiz egia ezagutzeko lagungarri doazala bai. Gaiñera gizarteko artuemonari bizitasun eta gatza emoten yautsiek.

—Ori ez ñoak ukatzen, baiña eztabaidea onuratsua izateko «egia» ezagutzeko asmoz egin bear dokala esan bearrik be ez yagok. Norberegaz gaiñetik urtetako asmoagaz eztabaidan astea, astia galtzea izango litzakek.

—Olan ba'litzozak eztabaidak onuratsu izango litzakezak, baten argia besteenagaz geyagotu egingo litzakek-eta.

—Alantxe dok izan be. Gizonak ba, alkarri itz eginda artu-emonetan asten dozak, eta lenen besteen eretxiei abegi ona egiten alegintzen ba'dok, bere eretxiak agertzeko «eskubidea» be aintzat artu bearko yautsiek.

—Orixe ez egitearren eztabaidak azkenbakoak izaten dozak, eta ondoren onik bakoak, len baiño gogotsuago norberenagaz yarraitzeko asmoaz amaitzen diranak.

—Eta gizonak ankea sartu dabela aitortzeko apaltasunik ez dan artean olan izango dok.

—Orduan zati baterako ba-yaukoguk.

—Batez be nik ezagutu ñoazan bi langoak izan ezkero.

—Euren eztabaidea zetzaz izan zoan ba?

—Neure aurrean eztabaidan asi zoazan. Ba-kik ze gai erabilli eben? Ba, bietatik zein zoan setatsuena edo terkoena. Batak esaten yautsoan besteari: —I ni baiño setatsuagoa az. Eta besteak erantzun: —I ni baiño geyagoa az. Eta olan luzaroan yarraituta gero batak besteari esan yautsoan: —Errezoya emoten daustat. Eta besteak erantzun: —Ez euki ez baiñoan...

—Yoadi olakogaz eztabaidan zerbait atarako alakoan.

—Ba, gauza onik egiteko olango geyegi ikusten dok bazterretan.

—Ordua aurrera yoak eta gaurko naikoa izango dok.

—Agur ba ta ondo ibilli.

—Agur!...

URIGOITIA

ARRASATE'TO I.B.A.'ri erantzuna

Berri emaille onek, gauzak bereizten ongi daki. Z. A.'ko 457'garren zenbakian, Durango'ko azoka aipatzen du, ta Mondraoen eratzekoa dana aitatu.

Zera dio: «Danok-eri zorionak asmo honegatik, oraingoan konturatuko dira «Kanta Berri baiño gauza garrantzitsuagoak ba dagozela gure jakintzarentzat eta herrikoi gauzak egitea obeago dala».

I. B. A.'k lendabizi, egin duan kritika bat egiteko, arpegia azaldu bear luke, baiñan onek egin duena, «arpegia daukala» erakutsi.

Gero kritika ori egiteko, sakon pentsa, ta egia jakin. Ikusi Durango ta beste errietan egiten diran azoketan, liburuak bakarrik ez dirala eskeintzen; liburuak eta diskoak baizik.

Bestalde, liburu berrien sariketarik ez ba'litz, adibidez: Agirre'tar J. Andoni, Agirre'tar Txomin etabar.... Leiaketa ta norgeiagoketa auek, antolatu ta eratuko ez ba'lira, liburu berririk irakurtzerik ez luke iñork izango. Ta Nobel saria etabar... alperrik dira.

Kanta Berrirekin ere berdin, beste orrenbeste gertatzen da. Txapelketa auek, iñork antolatuko ez ba'litu, abesti berririk ez genduke entzungo, musikalari berririk ez genduke izango, ez abeslari, ta azkenean; ezta entzulerik ere.

Azoka oiek, geienetan beintzat (ta guk, antoatu ditugunean) dirua irabazteagatik eratu ditugu. Ta bein baiño geiagotan eratu izan oi ditugu, alegia, Ikastola ta abarrentzat.

Kanta Berri, entzun dugunez, antolatzailleak diru anitz, asko galdu omen dute. Onek esan nai du, diruari jaramonik egin gabe, kultura aldeari bakarrik begiratuaz antolatua izan dala.

Agur aldizkarian irakurri dutenez, Lotazillaren 18 larunbata ta 19 igandean, Euskal-idazti, ta diskoen azoka omen dugu Mondraoen.

Orain galdera bat zuzenduko dizut: Azoka ortan «Kanta Berriko» diskorik ez al dute eskeiñiko? Edo «Kanta Berri» etzaizu gogoko? Edo leiaketa au eratu zutenen aurka zerbait daukazu? «Bista ona ta ikusi eziñ» aspaldiko esaera zaarra, oraindik jarraitzen duena, beraz.

Disko berri zuzpertzailleak entzun nai ba'ditugu, naita ez «Kanta Berri» ta onen erako, antzeko, norgeiagoketak bear ditugu. (Ta «Kanta Berri» Mondraoen egingo dan azoka ori bezin errikoi da). Liburuak berriak nai ba'ditugu: txapelketak, sariak, etabar, bear ditugu. Tamalgarria irudituko zaizu, nik, zuk bezela, ez pentsatzea. Baiña... pluralismo ta demokrazi konzienziatuaren pentsakera batean nere iritziak ere balioko du, noski.

SAGARZAZU'TAR JOSEBA


Areatza'n:

EGUALDI BILLA

Arrati'n gizon ospetsuak beti izan ta, aldi ontan be, ba-dira, naita apaltasunik andienagaz, euren buru azkar-jakitunak estaldu arren. Beraz ez gatoz orreik aipatutera, orrein jakintzea azaletik baiño ez ba'da be neurtuteko, gure ikasia baiño sakonagoa bear dalako. Gaur, azken aldietan agomentsu egin dan arratiar batetzaz zerbait azaldutera gatorkizuz. Esan doguzan gizon ospetsu goralgarri areikaz bardindu ezin ba'legikegu be, ikasigabea dalako berau, orraitiño berezko, iatorrizko zerbait «jakituria» ba-dau, jayo zanetik, bear ba'da, izadiagaz batean beti bizi izan dalako, edo bere bizibidea, ogibidea ori dalako. Gizon au, ez da besterik, azken aldian batzuk irribarrez eta beste batzuk bere igarkerak aintzakotzat geyegian artuta, izparringi, irrati ta urrutikuskiñean agotan darabillen «Upo'ko izarlaria» «Upo'ko igarlea edo artzaiña», Orue'tar Jon baiño.

Gabon ostean, beste arratiar zintzo batzuk agurtuaz batera, Upo mendirantza joan nintzan, ta mendi ortatik eskegita ba'lego lez aurkitzen dan Upo basetxera jo neban. Orain 57 urte, or jayo zan «Upo'ko igarle» agaz izketalditxo bat egiteko asmoan, eta elduaz batera, alkar agurtu ondoren, asi giñan geure itaun-erantzunetan:

—Egia esateko, Orue, nik enebazan irakurri, zuk Dagonillean, udagoyenerako egin



zenduzan igarketak, baiña esan eustien, ez zenduzala guztiz igarri, zer diraustazu?

—Orduan, auxe esan neban: Udagoyen ona egingo ebala; euria egingo ebala, baiña ez ebala otzik ez eguraldi txarrik egingo, gitxienez, Gabonak arte. Ba-dakit «telebisiñoak» zer esan eban, ni oker nengoala, Gabonetan eguraldi txarra egingo ebala-ta. Ta zer, ez ete-da izan, esan neban lez, eguraldi ona?

—Bai, orretaraxe izan da, Euskalerrian beintzat. Ta «telebisiñoa» aitatu dozun esketiño, jakitun gagoz zelan Madrillera eroan zinduezan urrutikuskiñaren bidez itz egiteko, baiña bertan galdetu eutsuenean ea urrengo egunean zelako eguraldia egingo eban, ezin eikezula bertan igarri erantzun ei-zendun, zergaitik?

—Ez egoalako an, ez aizerik ez kerik, ta ez zan erraza igarriten, baiña ba-nekian zer egingo eban, eta bertatik urtetean batera esan neutseen nere laguntzaille arei, ta alantxe urten zan. Egun batetik besterakoa eunetik larogeita amazortzi bider igarriko neuke; nik lez, emen Bizkaia'n Gorbea'ko edo Euskalerri'ko edozein artzaiñek be.

—Kontxo! Ori askotxo esatea ez da izango? Urrutikuskiñez eta irratiz eguraldiatzaz itz egiten dabenak be, bein baiño sarriago uts egiten dabe-ta...

—Bai orretara da, baiña artzaiñok lez egunero, eguraldi txar edo on, mendigaillurrik gaillur ibilliko ba'litzakez, ziur errezago igarriko leuskioe eurak be.

—Esan dauskuenez, ixilliko igarri-gaillu-ren bat ba ei-dozu, ezin ete-geinke jakin zer dan bera?

—Ba... zuri, euskerazko periodikurako, esango neuskitzu, baiña... iñori be ez dautsat esan-eta...

—Ara, erdeldunak esaten dabe: «irakasletxo bakoitzak bere idaztiñotxua dauko», ta besteeri esan ez ba'dautsezu, ez esan gur be. Oraingoz egiña izango dozu negu ontarako igarketea, ez da?

—Bai, Abanduaren ogeitabatean gertatu neban, eta negu mazala izango dogulakoan nago, aurten; gogorkeri gitxikoa geyenbaten. Egingo dau edurra ta iñetasia goi-aldean, eta beetan be bai bear ba'da, ta izotzak be bai, baiña Epaillaren lenengo aldirarte, goiko aixeak (ego-aixeak) joko dabe geyenetan, ta ori dabillen artean, ez da eguraldi gogorrik izango. Gazteiz aldean barriz, laiño otza ugari izango dabe aldi berean.

—Ba, orretara, zuk diñozun erara idatziko dogu AGUR'ean, bere irakurleak irakurri dayen, eta euron artean arratiar zintzo askok.

ALTUNA'TAR JOSU

1971 URTEA

Legeak agintzen dauan bideari jarraian, zuzendaritzari buruz ari dala, aldizkari onen zuzendari eta jaube Jose Maria Martin de Retana dala jakin arazoten dogu.

Era berean, gure irakurleak jakin dagien, 1971'ngo artu-emonetan laureun ta ogetalau milla ta zazpireun eta iru lauerleko jaso ditugula, onela zatituta: Arpidedunetatik 297.765—; aleka zalduak 7.614—; iragarpenetatik 61.224,— Arpidedun laguntzailleetatik 55.400,— Ordaiña jasoteko arpidedunak 2.700— Danera, esan dogun lez: 424.703,— lauerleko. Eta eralketetan emona: Irakorlan, Ingitan 60.327,—; Irarlanetan 275.125,—; Klitxeetan 34.536,—; gero, Ale-igorriketan 16.581,—; Adreman 8.416,—; Zabalkundean 6.213,— Etxe-sarian 20.000,—; Danetarikoetan 5.716,— Danera 426.914,— au da, laureun eta ogetasei milla ta bederatzireun eta amalau. Ortik urtian amaieran 2.211,—; bi milla berreun eta amaika lauerlekoren galtzea izan dogu.



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

ETA PAKEA GOGO ONEKO ANDRA-GIZONEI


Barriz «pakea» itza, eta onetan be, «erlejiñoko» gauza geyenen antzera, erderatiko itza, ta besteen antzera be, esangura aldetik, illun edo txarto artuta: Pakea itzak, *Pax* latiñetik, eztiñosku gudarik-eza baiño, eztau esan nai zuzentasunik, egirik, azkatasunik. Benetan eta ondo esan danez, pakea bildurragaz nastauten da, norbaitzuen asmoan beintzat.

Alan eta guztiz be, pakea itza ausnartu eztaben batzuek, egun oneitan lurralde askotan guda biziak dagozala ikusiaz, negarrari emoten dautsoe, aldi au pakearena izan bear ei-da-ta; nik ostera, zurragoa-edo izan guraz, baita, zergaitik ez?, itxaropentsuagoa be, orretariko guda batzuetan erri zapalduen gorantza naia, zuzentasun gosea, egi-joraiña-ta idoro gura dodaz: auxe, benetako «pakea», ta bildurragaz nastau-barik batez bere. Augaitik, nik neuk, biar-etzi obe baten poztasunez artzen ditut egun onetako barri baltzen batzuk, andra-gizonen oiñaze guztiak miñ egiten ba'dauste be.

Pakea; ezta itz argia, ezbaizkoa dogu. Pakea? Euzkaldunok ez ete-daukogu oindiño gogoan Pax Romana eritxona? Aregaz, lurbiraren erdi bat oinpean, kateak loturik, andikiek agindutako lanpean, bai ankerki ibilli zala! Alde batetik erri jopuek, txirokeria ta gusirako, sortaldekoak ebezen 169 tokitik, 167 (ta alde bietakoak osoan artuta, 313'tik erdiak baiño geyago). Sarkaldeko Pakistan'en jardespena izkilluarena izan zan, ta bengaldarren aukerea odolez irato nairik, gudaroztea etorri ta bein eta barriz, indarraren legea garaille. Gudarozte orrek zenbat erritar il ebazan, eztakit iñoiz ezagutuko dogunik, baiña 10 milloik beiñipein igesari emon bear izan eutsoen, ta India'ren abegi onez onen lurraldera jo.

India'ren ondasun makalarentzat 10 milloi bengaldar orrei jaten emotea geyegi izan jakon; augaitik, eta betiko arerioaren aurka egiteko eretia onartuaz, Indira Gandhi jaurlaritza-buruak, Bangla Desh (Bengala Azkatuta) en sasi gudariei eskua emotea erabagi eban. Bengaldarren asarrea ta kemena euspen onegaz aunditurik, ta URSS'en bayetzagaz, gudarozte indutarra erasoten asi da guda agiri baten oraintsu; India'ren aldean Pakistan makala da, ta arek gurenda lasterra jadetxiko dauala dirudi. Onelan, uste dogu, beste erri bat azkatu egingo dala.

Adiuntza onetan, iñungo lez agiri izan jakuz erresuma nagusien azpikeri zakartsuek: Pakistan USA'ren aldekoa izan da, baiña India'ri kalte egitearren Txina Bengala'ren elpuruen aurka jarri da, Mao-Tse-Tung'en



mingostasuna, ta bestean egundoko bizitza aberatsa, lasaia, erosoa, erreza... jauntxoentzat. Eta emen, gure etxe aldean Kantauri'ko triskantza, olako «Pax» a betikotu nairik: ta bai txarto Euzkalerria... Kalagorri'rena esateke be, apur bat geyago... ta gureak egingo eban.

Beste pake bat, gugandik urrunago Pax Britannica daukagu XIX'ean. Nagusikeri aretan Irlanda'k, Indiak'eta molokot egin eben, ta Ingelanda aberats okitua biurtu zan. Geure egunotan orra or Pax Americana: zer dan jakiteko, itandu eiezue Biet-Nam, Kanboya ta Laos'eko baserritarrei, edo zoaze angо lur-erri erreak ikustera.

Ez, ori «pakea» ba'da, nik eztot pakerik nai. Guk gura doguna alkar-maitasuna, zuzentasuna, gizarte-motarik eza da... Esanikoei dagokeen itza, or dogu GENTZA; edo buruari ekin barik, baretasuna be esan geinke... Neurekiko Pake itz illun ori, alboan itxi egingo neuke.

Onezkero, ikuskatu dagiguzan oraingo butruka-tokiak, begirapen arin bategaz: BENGALA.—Ingelanda'k India menperatu ebanean, errez jaurri al-izan eban, bertako musulmanek eta indutarrek alkar gorroto izaten ebena aintzakotzat artuaz: batzuek besteekin konpondu baiño len, gurago izaten eben ingelandarrakaz itundu; gaur be auxe da angо buruastea, oraindaiño gorroto zar a ibitu eztalako.

Bigarren Guda-orokorra amaituta gero, India'ri azkatasunaren garaia eltzekoa zalarik, musulmanak indutarrekin bizitzea eziña ebela ikusiaz, Ingelanda'gandik Pakistan izeneko erresumea irasteko eskubidea lortu eben, 1948'gnean. Baiña, India aldeko musulman guztiak bateratu nairik, gure gizaldian arrigarrienetarikoa dan estadu bat sortu zan (1945'arteko Alemania at), lurralde bik osotzen dabelako, Indo eta Ganjes ibai-bazterretakoek, 1600 km dagozala bitartean. Abiatzean, alkartasun baten antzera antolatu ziran zati biek, baiña, alderdi-izkanbillek asiorduko, gudarozteak jaurbidea bereganatu eban, eta sarkaldeko zatian uriburua dagoala, laister erdirazalekeria agertu ta onela kalte andia sortaldekoentzat.

Urteak joan, urteak etorri ta, azkatasun gosea jayo zan. Igaz, ekaitz itzel batzuk Bengala'ko lurrek eta biztanleek astindu ebezan, ta bearrezko laguntzek sarkaldetik aguro-aguro ez ta urri etozala ikuztea izan zan bengalatarrentzako gonpurua; augaitik azkenengo auteskundeetan, azkatasunaren aldezko Awami alderdiak irabazi eban: Batzar Naaburu ospetsuakaz aiztuaz (Guda ta erri igikunde iraultzailleek, eta abar): ONU'n sartu danetik bere nagusikeri-gosea lotsa barik agertuten dau. Ostera, India, alderik eztauka-ta, bakarrik geratuko zan, URSS alkartu ezpa'litzakio, USA ta Txina'ren (auxe, biek mail bardiñean bai'liran lez) aurka egiteko asmoaz. Orregaitik be, USA'k, bere «demokrazia» ta pelikuletako mutil onek izatea aiztuaz, «pakearen» (ona barriz arako itza!) billa jardun dau ONU'n: olako «pakea» Pakistan'ari dagokio-ta. Bengala'ren zorionaren zoriona, ONU'n sobietarrak esandako ezetz nagusiek dakar: onekaz epazarte bat zuzendu dautsee India'ren gudariei, Pakistan goibetu arte.

Arazo onezaz, beste solasgai bat daukagu, auxe: India'ra erbesteratutako 10 milloi bengaldarren egoera latz arek dardara eragin dautse biotz samur batzuei, ta or emengo izparringiekin batera (Bilbo'n be) diruemoitza zoli bat leyarazo dabe; egunotan be, erri arek azkatasunaren aldeko burruketan diarduala, negar eragiteko argazki-idazki ugari botatzen ari jakuz arpegira, ta arako «pake» itz orreri miazka-miazka bein eta barriro. Ondo jaku lur arrotzean dagozan andra-gizon onei lagundutea, jakiña, baiña txarto jaku leyaketa orreri emoten dautsoen ikuskerea, «egite» bat aldekai guztietatik erantzi nai da-ta; oraingo egoeratik naitaezko erbesteratze ori banatuaz, auxe: Pakistan'en gudarozteak egiñiko triskantzak, bengaldarrak etxetik iges-eragin dauzanak. Arazo garrantzitsu bat txikertu ta bere benetako erabagitik (auxe, errikaturiko bengaldarrei lurrek, ondasunek eta aukeratzeko eskubidea biurtzea) urrutiratuten da.

Au, Biafra'n jazo zan ainbatekoa dogu. Mundu guztiak, nijeriarrek egindako triskantzea ixil-geldirik ikusi ondoren, «karitatera» deitu eban, oinpean ipiñiriko erri kementsu ari janari-apur batzuk igortzeko. Beste askotan letz, karitateak zuzentasuna ordeztuten dau, inperialistek kezka barik lo egin dayen; baiña, Jaungoikorik ba'da. Onek lenengoz Zuzentasuna eskatzen dausku, gaiñekoa berez etorriko da-ta. Bengala erri arek, bere etxean jaube izateko laguntzea bear dau, ez gure oturuntzaren apurrak; bengaldarrak eskeko nagi-traketzek eztira-ta, eztagokie limosnarik.

(Jarraitzeko)

ARRIORTUA'TAR ANDER

POLITIKA edo ERRI ARAZOAK

Bat: *IZANA (Politikaren...)*

Erri arazoa zer dan jakiteko, lan asko egin dira azken urte onetan. Idazle asko ari dira, erria zer dan, zelan bizi dan, bere elburu ta beste olako erriaren milla arazo ikasten.

Arazorik aundienetarikoa, politika ikastaro berezi bat egiten alegintzen diranena da. Batez be Gizarte-izti edo Soziologi ta araukoetatik kanporatutzea.

Ba'dagoz arazo onetan laguntza ta indar aundia emon dabenak, eta laguntza guzti onek emon dabe euren ernamiña ta azia: Carl Schmitt'ek iñoanez, alegiñak alegin egin bear ziran politikaren oldozkai bereber bat menderatzeko.

Ustego edo teoritzalle askok, Laterri edo Estadua zala bakarrik erri arazoen iturburu esaten eben, eta Laterri ortatik kanpora ez egoala ezelako jokabiderik (onela A. Comte'k, Jellinek aleman idazleak eta beste askok). Baiña ustego au, ori zan bakarrik, ustegoa. Eta errian jazoten ziran arazo guztiak ezin azaldu Laterri utsaren ikusmenetik, ba S. Romano'k iñoan lez «ubi societas ibi ius» eta «ubi ius, ibi societas». Au egia: gizarte barik ez dago eskubiderik, eta eskubide barik be ez dago gizarterik.

Argi azaldu euskun Cabral de Moncada'k politika ez zala Laterria, ba Estadua ez da politikaren aurretik sortua; Erri-arazoa, politika, beti izan da, betikoa da; gizona dan artean, gaiñeraz, agortuko ez dana. Ta arazo ori bide onetatik eroateko, okerbideak zuzentzeko, ondorio lez sortu zan edo sortzen da Estadua. Origaitik, idazle onek diñon lez, oldozkai bat «a priori» billatu bear dogu. Oso bearrezkoa da. (Irakurri Cabral de Moncada'ren «Da Essencia e Conceito do Politico». Boletin da Facultate de Direito, 27'en idaz. 1971).

Egia esan, naita argi guztia egon ez, guztiok konturatzen gara politika edo erri arazo ori, naguziena beintzat, zeren inguruan dabillen :agintearen gizarteko erakunde ta jardukizunaren inguruan.

Miller'ek, ostera, politika, agintea nai dabenen eztabaidetatik sortzen dala diño.

Erri arazoa, Burdeau'k argitzen dauan lez, gizartean egunero daukaguzan eztabaidetatik yatorku, gizarte onen esamesak baizik eztira. Gizartea guda bat da, ta gogorra: diru, jakintza, asmakera, lege ta beste milla alderditatik sortzen dan eztabaida bat. Ez dira itxi bear alde batera siñismenak, sorginkeriak eta antzeko gauzak be.

Geroago ikusiko doguz, al dan bestean, edo gugana eldu diran lez, zer gizarte arazok eroan daben Euskal Erria orain dana izatera.

Baiña, zein da politikaren benetako neurria? Nundik noraiño eltzen dira politikaren asiera-amaierak?

Orain arte, ez dogu oldozkai bat be, itaun orreri oso-osoan erantzuteko. Bakarrik, jakitun batzuen ustegoak doguz aldean. Origaitik, batzuentzat, agintearen erakunde edo antolamendu ta ariketa gizarteko egituran, izango da. Beste batzuentzat, ostera, bakarrik erriaren agintea izango da, ta Laterri edo Estadua, aginte lez, ukatu egingo da (au marxisten ustegoa da, lenen, eta ba-dagoz ori diñoenak beste batzuen artean be).

Argi dogu, orduan, politikan gauza ta naste asko sartzen dirala batera: alde batetik agintari-aginduen artu-emonak; bestetik guztien bear izanak, eta bakoitzaren izana, adizkide-etsai izana, ta abar...

Julien Freund'ek, bere idazti «L'essence du politique Sirey»'en (1965'gn. Paris'en) diñon lez, erri-arazo mailladian, lenengo mailla, agintza-menpetzako mailla da. Erri barruko arazoetan, gizartearen edo erriko guztien eginkizunak eta bakoitzarenak agertzen yakuz. Eta beste Erri batzuekaz eukiten diran artu-emonetan, adizkide-etsaiak dira bitarteko. Nik uste dot, eta egunero ikusten doguz, ez dala jazoten au beste erriakaz doguzan ezaupidetan bakarrik: Erri barruan, gizaterrian ere, orrelaxe dagoz lagun-arerioak. Osterantzean ikusi, urte asko ez dirala, zelako guduak euki doguzan gizaterrietan. Ez dago, oraintxe be, begirakada bat Palestina'ri emotea baiño.

Gaiñeraz ez dogu inoiz aiztu bear gizarte ekonomiaren indarra gizonen artu-emonetan.

Beste batean ikusiko doguz, sakontasun aundiagoagaz, gure erriaren gora-berak, alderdi bakoitza asti geiagogaz ikuturik. Batez be izan dauan indarra gure errikoen artean, Euskal Erriko gizartean, Kristo'ren erlijioa ona etorri zanetik, abadeak. Ardura aundia dau, emen sortu diren gidarien gizontasuna ikasteak.

Freund'ek diñonez, gizarte guztia ta beti, agintza-menpetza batean egon da, orrela izango da aurreratzean be. Orain bearrezko dogu, agintza-menpetza ori zelan izango dan danen onerako, ikastea, ta gizartera eroatea, egitea. Gizartekoak gara ta an bizi bear dogu. Danok ez gara bardiñak, oso ezbardiñak baizik, baiña bakoitza bere nortasun, askatasun ta eskubideakaz gara. Orduan bearrezko doguz lege batzuk, eta bitarteko batzuk, beti guda batean bizi gura ez ba'dogu.

(urrengoan jarraituko dau)

GARATEA

ONA
ta
RAM
EZNEAK
ZUK
ONARTZEKOAK
DITUZU

ARDANDEGIA
JATA
BAZKARIAK
AZKARIAK
APARIAK
MUNGIA

NOVEDADES URILARRA
UMEEN ETXEA
Jantzi - Apaingarri
Berogarri - Bitxiak
Butron, 19 MUNGIA

TXIMIST-INDAR EKINTZA
YOGO
JESUS Ma. GONDRA
Basozabal Anaiak, 5, 4.a
MUNGIA

ALKARTEAK-JAIAK


ALKARTEAK

Mungi'n ainbat alkarte daukaguz. Alkarte asko izatetik alkartasun bizia dagoala iruditzen jaku, baiña mingarria da, errikoa izanik, iruditzen jakun ori ez dala Mungi'n egia esan bearra.

Gazteen artean, alkartasuna?... Ez, ori ez da egia; gaztedia batzeko ez da naikoa batzuen gogoona. Gogo onaren barruan, sarritan, talderen bateko interesak sartzen dira. Geure asmo-utsean edo taldekerietan bakarrik lan egiten dogun artean, erri-arazoak alde batera itxiten doguz; gure nortasuna eraginkeri batzun eskuetan itxiten dogu-ta

Beste alde batetik, ezbardintasunak ongarriak izan leitekez, baiña nire ustez, gaur Mungi'n, ezin da au ongarri izan. Erria lotan dagolako, erritar geieneri ez dautse ardura, ekintza baten, alan edo olan egin, ez dira ba konturatzen zer on edo zer txar ekarri leiken-eta.

Sarritan, gu, gazteok, ainbeste lotu ta zarratzen garala geure taldeetan, erriarentzat gauzak egin bearrean, erriko batzuentzat bakarrik egiten doguz. Zergaitik au?... Lenengo, zintzotasunik ez dagoalako, ta bigarren, bakoitzaren taldekeriagatik.



Arazo oneik ikusirik, zein ete-da Mungi'ko «Alkarteen» egin-bearra» Nire ustez, erria itxartu, ta ez amesetan dagoalarik ekintzan ipiñi. Ostantzean, itxartuten danean, konturetu barik, bere nortasuna zapaldu dabela ikusiko dau-ta.

* * *

IKASTOLAKO JAIA

Urtarrillaren 2'gnean, Ibaigane zine-tokian Ikastolaren aldeko jaia ospatu da. Jai-aldi au urtero egiten da, ta erritarrak, beti lez, aurten be ederto erantzun dabe. Zine-tokia ganezka egoan; programea oso errikoia izan zan ezkero, ta bertan errikoak arte artu ebelako.

Alde batetik, gure erriko bertsolariak: Ormaetxea'tar Juan eta Meñaka'ko neska bertsolari gazteak. Iragarki-programetan bere izena agertu ez arren, an ikusi gendun gure Ormaetxea'tar Fabian, opera-abeslaria ta euskaldun zintzoa. Ikastolaren alde zerbait egiteko eskeindu zan; eskerrik asko ta zorionak Fabian.

Onen ondoren, erriko beste abeslari gazte bi. Bat oso ezaguna, Zarraga'tar Joseba, ta bestea, Zuazo'tar Itziar, ez ain ezaguna, abeslarien artean beintzat, baiña ederto egin ebana bere eginbearra. Aurrera Itziar!

Beste guztiak, ez dagoz zertan aipatu bearrik, oso ezagunak dira-ta: Josu Loroño, Zorion Egilleor, Josu Zabalondo, «Elaiak», Estitxu ta «Dindirri» dantza taldea.

Zorionak eta eskerrik-asko, gure erriko ikastolaren alde eskeiñi zarielako, baita eskerrak, Zinelekua ganezka egin arte beteteko lan egin zenduen guztiori be.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

MUNGI'KO EUSKEREAREN GIROA

Guk ez gendun guda aurreko Mungi'rik ezagutu, baiña diñoenez, euskaldun uts-utsa ei-zan inguru guztia, bai kalea, baita auzoko baserri-artea be. Ez egoan lantegi aundirik, eta banaka batzuk ei-ziran bakarrik erbestetik etorritako erdeldunak. Izkuntzearen alde gogor jardun eben orduko gazte errizaleak, eta entzun dogunez, ugari ziran itzaldiak, antzerkiak eta abar. Gazte arein artean, ezin aipatu barik itzi olerkari ospetsu ta errizale amorratua izan zan Urkiaga'tar Estepan, «Lauaxeta».

Orain amabost bat urte Mungi'ra etorriak gara, ta «Lauaxeta»ren gurasoak ezagutzeko erea be izan gendun, gure ogibidea bitarteko zala. Ez gendun Estepan ezagutu —sei urteko giñala il eben— baiña enborra zelakoa, kimak alakoak ba'dira, Estepan izar dizdiratsua izan bear. Guraso jator aiek erakutsita irakurri genduzan bere azken-agur eskutitzak, errizaletasunez eta kristautasunez beteak... baiña guda zital arek iruntsi eban gure olerkaria ta, bear ba'da beragaz batera, Mungi aldeko euskal giroaren zati on bat.

Gero, ikeragarrizko atzerakadea egin ei-eban euskereak, bai kalean, bai auzo errietan be, baiña, batez be, kaleko umeen artean. Len esan dogun lez, amabost urtetik onako giroa ezagutu dogu. Giro onen sortzailleak erriak izan dabezan aldakuntzak izan dira. Alde batetik lantegi barriak; bestetik errikideen eguneroko ekintza ezbardiña. Lantegien artean batzuk, bertoko langilleekin ornidu dira, euskaldun langilleekin. Beste batzuk baiña, kanpotarrekin. Oneik, borondaterik onenagaz ogia irabaztera etorri arren, nai ta nai ez, asko erdeldundu dabe giroa.

Mungi'ko ta inguruetako semeak ez dabe bardin jokatu izan. Batzuk, kaletar gazteak, umetan erderaz eziak izan arren, euskalzaletasunez kontzientziaturik, ikastolearen sortzailleak izan dira. Batzuk, gaur, guraso dira; beste batzuk, oraindik ez, baiña euskeraren alde diardue. Baserritarrak beste orrenbeste egingo ba'leukee! Baiña zoritxarrez askok, erderazko konpleju orrek bultzaturik, erderazko ikastetxe ta eskoletara bialtzen dabez euren umeak. Gurasoak euskaldun utsak izan eta umeeri erderaz egiten entzuten dogunean... gorrotoa sortzen da gure biotzean, ezin ukatu!

Baiña, ez da oraindik guztia galdu. Zer egiten da ba aldatz-bera oneri oztopoa jartzeko? Gauza aundirik ez. Orain zortzi-amar urte, antzerkiak gertatzen asi giñan ta, bai albo errietan, bai Mungi'n eta Bilbo'n be, antzerki bi antzeztu be: «Eguen Zuri» ta «Gogozar»; goralduak eta txalotuak izan ziran. Irugarrena gerturik gendula: «Gabon-gabonetan», ukatu euskuen baimena, ta kito, an amaitu ziran Mungi'ko antzerkiak. Ez ete-dago orain barriro sortarazteterik?


Esan dogun lez, gazte ta guraso gazteen artean zaletasuna berbiztu dala esan geinke. Ortatik sortu zan orain iru bat urte gure ikastolea. Gaur, 150 ume ditu ta bost andereiño jator; oneik bai gure itxaropen aundiena. Gazteak gogor diardue euskeraz, alfabetatze ekintzak be antolatu dira taldeka, Kili-kili be indartsu, euskal aldizkariak irakurten dira, euskal-abesti jaiak be egin dira (urtarril onen 2'gnekoa ederra, antzokia puntaraiño beteta) ta abar. Kaletar gazteen artean euskera geiago egiten ete-dan nago, baiña baserritarrak itxartu bear doguz! Gurasoengandik jaso eben aberastasunik aundiena euren umeeri ukatzea lotsagarria dala erakutsiz.

Eziketa edo edukaziño aldetik, ikastolea aipatu dogu, baiña kolejioa? dalako institutoa? Lenago asi ziran euskerea erakusten... jarraituko ete-dabe? Eta Eleizeak zer? Ezin esan geinke zapaltzaillea izan danik, naikoa egin dau euskeraren alde aldi makalenetan, baiña askoz geiago egin bear leuke orain arteko jauntxoen aginduak baztertuz...

Albo-errietan, laguntza ezbardiña dago; batzuetan jatorra, beste batzuetan betiko zapalketea. Egiztatu bearrean gagoz, baiña, entzun dogunez, euskaldun utsa dan albo-erri baten, erdera utsean egiten dira eleizkizun guztiak, eta orrez gaiñera, bertako maixuak zigorpean debekatu dau umeak euskeraz egitea, oporraldi edo errekreoetan be. Egia ba'da, izen eta abizenez agertuko dogu, jokabide ori giza-lege, izadi-lege, Eleiza-lege, ta Estaduaren Irakaskitza lege-barriaren aurka ibiltzea da-ta.

Mungitarrok, naiz jatorriz, naiz biotzez zareenok, iritziak pizka bat aztuta, alkarregaz lan egin bear dogu, ta al-dan neurrian giroa euskaldundu. Ez da erreza izango, baiña ekintza sendo barik ez da ezer lortzen.

MUNEGAIN



Erosi egizu zure belbilla,
lengo zarra naiz barria
AUTOMOVILES MUNGIA
sal - erostokira ekarrita
Erreztasunik aundienak
Trobka, 10 MUNGIA

GOIMAR, S. L.
Abereentzako jangai
neurridunak, S. P. R. L.
Protector'en araupean
Onduak
Trobika, 27
111 urrt. MUNGIA

JAI ALAI
AGIRREBENGOA
AKEITETXEA
MUNGIA

AKEIT-ESNE BEREZIAK
KORONTZI
ARDANDEGIA
Butron, 9
77 urrt. MUNGIA

MUNGIA, S. L.
Belbillak
RENAULT Bereizketak
Cocktail-jai eskeintza
Erakus - saltokia
Laguntza trebea
Bilbo'rako bidezabalean
303 urrt. MUNGIA

JANTOKI - ARDANDEGI
BOLA-TOKI
Mentxaka'tar Ander
EZKONTZAK-
JAUNARTZEAK
Bilbo'rako bidezabalean
294 urrutizkiña
LAUKARIZ - MUNGIA

comercial
TROBICA
«Kelvinator» otzgailluak
«Zenith» urrutikuskiñak
Apal, ontzitegi ta
eskaratzeko tresnak
«Sukalde, S. A.»'k egiñak
«Sol Thermic» berogailluak
«Triton» arasak
Trobika, 8
286 urrt. MUNGIA
KATEKO SALTOKIA

BARATZ - PE
AKEITETXEA
Chinchilla'ko ardao samurrak
Azoka enparantzean
MUNGIA **16 Urrutizkiña**

KATEKO SALTOKIA
JOSE MANDALUNIZ
«Philips» Sukalde-tresnak
«Alfa» Joskiñak
«Sol Thermic» berogailluak
Concordia, 5 - 33 ta 257 urrt.
M U N G I A

Carrocerias Mungia
Barrizte - Burdiñatze
Margoaldi - Ugalezte
Nabarra Ibilbidea, 31
462 urrt. **MUNGIA**



MUNGIA - ALDEKO EUSKEREA

Sarri esan dot, eta gaur barriro esan bearrean nago, gure berbetearen aberastasuna erriaren barruan dagola. Antxe bizi da, bere zártzaro naigabetsuan, euskera jatorra, benetako euskerea. Antxe aurkitu doguz gaurkoz euskereak ditun irakasle bakarrak. Erria konturatuten ez dauan euskalzalea ez da euskerazalea.

Eta egi aundi au oiñarrituteko bide bakar bat daukagu: Bonaparte'ren edo Azkue'ren antzera errira urreratu, erriari entzun, érria bera onartu. Egin neban onetarako ekiñalditxu bat, bearizanak eraginda, eta erria aurkitu nebanean, neu errikoa izanik, neurri bako atsegin bat asmau neban. Gurariz lan orretan jarraituko neuke, baiña beste lan batzuk menperatuta nauke. Ba leiteke, orraitiño, asti-aldiren baten beste ekiñaldi luzeren bat egitea.

MUNGIARREN APALTASUNA.—Gure baserrietan onetarako aurkitzen dogun estalkia, biguntasunez kendu ondoren, itzaltasun aundiz urreratu nintzan zar eta gazteakena.

—Euskereari buruz lantxo bat egiteko asmoetan nabil. Mezedez, zeuek etxean egiten dozuen euskeraz erantzun batzuk emon egidazuz.

—Baiña zertarako? Gure euskerea txarra da ba ta!

—Orretan oker zagoze. Zeuek, eta ez besterik iñor, euskerearen maixuak zarie.

Eta alkar-izketa au gogoraturik zenbatetan neure buruari esan dautsadan: Euskal-maixuen arrokeriak erriari egin dautson kalte ikaragarri bat auxe da, erria eta bere berbetea, arrokeriz, iraundu dabez. Ortixek sortu da erdera-zaletasuna, batez be neska gazteen artean. Negargarria benetan!... «Benetan zoriontsuak zuek baserritarrok zeuen ondasunak ezagutzen ba'dozuez», olerkari zarrak esan eban lez.

Mungialdeko berbetea aztertzeko gai oneixek artuko dodaz: Berbak, berbak osotuteko erea eta, batez be, abostegia edo berbotsa. Nire lana berbotsari buruz izan zan.

BERBAK.—Mungialdeko iztegiaren aztertze bat egiteko, askotariko berbak konturatu bear dira.

Lenengo, gazteleratik edo latiñetik artutako berba zarrak, bear ba'da mille edo bi mille urtean mungialdean erabilli diranak. Berba oneik ontzat artu bearrekoak dira. Esaterako; berba, **latiñetik artua;** errota, **latiñetik artua;** errementari **«ferrementarius», latiñetik artua;** aingeru, arima, gorputz, zeru... **latiñetik artuak dira eta kondaira eder bat dauke izkuntzalarientzat. Berba orreik eta beste asko eta asko Mungialdean eta euskalerri osoan esaten diranak edozein izkunzalarik onartu bearrekoak dira. Ba dago beste itz bat, Mungialdean baiño entzun ez dodana:** Erritan **edo** erriyetan egin, burruka egin **esan gura dau. Erderatik artua da:** hacer reyerta, **baiña esakera ori erderan galdua da edo gizon arro batek erabilli legikena.**

Beste berba asko eta asko erderearenak dira, bear ba'da oraintzuago sartuak. Esaterako panaderua, bentanea, kortinea... **berba oneik erriak beti darabiltz, eta iñok ez dau esaten** ogigiña, leioa; **zarzarrak** errezela. **Zer egin? Onetan be erriarena artu?**

Eta beste berba batzuk jakitunak erabilten dabezanak, erriak ez ditu artzen: Kapitulua, ermanoa, ternerea, erredondoa, primoa... **oneik be sartu-guran dagoz. Zer egin? Erriak oraintzu artu ditun berben artean garbiketa bat bearrezkoa dalakoan nago. Erriari entzun ondoren eta beragaz batera eziketa lan bat egin bearko da.**

BERBAK OSOTZEA.—Berbalari zarren belarrietarako mingarri diran esakera batzuk sartu dira gazteen artean. Esaterako: atzo Bilbo'n ikusi tzut **edo** neutzun, zindudezan **edo** zaitut **esan bearrean. Onetan gazteak oker dagoz eta euskerearen izekerea bera barrubarruan zapaltzen dabe. Au ezin ledike ezelan be onartu. Onetan gazteak zuzendu bear doguz eta bidera ekarri. Ba leiteke gure lanak alperrekoak izatea eta beste eun urte barru, euskerarik egiten ba'da, berezitasun au galduta egitea.**

Berba-osotzeari buruz beste gauza asko esan bearrekoak dira, baiña ezin.

SIÑISTU - EZIÑEKO ABERASTASUN BAT.—Mungialdeko euskerearen siñistu eziñeko aberastasun bat berbotsa edo abostegia da. Mungia bera erdi lez artu, eta sei Km.'ko inguruan zenbatu eziñeko beste abostegiko lege betetzen dira iñoz utsik egin barik eta legeak eurak jakin barik. Erri bakotxak bere izkerea dauka, eta, lan au egin ondoren, edozeiñen berbetea entzun eta geiago barik esango neuke zein erritakoa dan. Ez neuke uts asko egingo.

Iparraldean lege batzuk: Jatabe, Gatika eta Laukiniz'en ez dabe ogie **esango, bai** ogi; **ez** oilloa, **bai** oillo; **ez** basue, **bai** basu **(edontzia); ez** alabea, **bai** alabe.

Egoldean, ostera: alabia **(Gamiz'en)** alabea **(Mungia'n),** alabie **Fruniz'en, Arrietan, Meñaka'n, Larrauri'n;** etxia-**(bardin)** egije, olloa, basue **(edontzia),** burue. **Bermio'n oinkada bat geiago emonez,** ollue **esaten dabe, Ondarru'n** oillu.

Erdialdean, Mungia'n bertan, erdi bide bat artzen dabe.

Tamala da, baiña amaitu bearreko nago. Mungiarrok: Eutsi zeuen euskereari, aberatsa ta ederra da ta. Mundu guztiarentzako jakingarriak dira bere legeak. Egin beti euskera.

OLAZAR MARTIÑ'EK

NEURKETA
ARDANDEGIA TA
AKEITETXEA
M U N G I A

Idaztitegia - Idatz-tresnak
FOTO GOICOECHEA
Argazki ta Zine gaiak
Anditzeak, Ber-idaztiak
Concordia, 9
93 urrt. **MUNGIA**

GABEUKATZ - ORDULARI
LARRABE
BITXITEGIA
Fueros enparantza, 1
MUNGIA

OKELAK-TXARRIKIAK
M A N U
ERRIKO ODOLOSTEAK
Nabarra ibilbidea, 17
M U N G I A

GORDEJUELA
ARDANDEGIA
Bazkariak, eguneroko ta lagunartekoak
M U N G I A

S E R T U T X A
AKEITETXEA
Trobika, 23 **MUNGIA**

ABERE-BAZKAK
S U G A
Abereentzako jangaiak
LARRAURI - MUNGIA

Carrocerias TROBICA
Oskol ta barru antolatze
Azpi-barrizte
Apaingarri ta margoketa
M U N G I A

A R D A N D E G I A
LAU-BIDE
Bere akeit eta etxeko urdaiazpiko ta lukainken berezitasun ezaguna
Zubiaga, 14 - 165 urrutizkiña
M U N G I A

JOSTUNDEGIA
IÑAKI
J A N T Z I A K
E T A
O I A L A K
San Pedro, 14
401 urrutizkiña
M U N G I A

G O Z O T E G I A
LEKU-ONA
Orezti gozo ta sagar - opillen arlo berezia
Jantoki apaiña
Concordia, 14 ta Butron, 2
196 urrutizkiña
MUNGIA

JATETXE - DANTZA - LEKU
ZUBIKOA
AKEITETXEA
Nabarra Ibilbidea, 4
345 ta 346 urrutizkiña
M U N G I A

IDAZTI BARRIAK

GOIZNABAR

Ona emen barriro, gure Aita Onaindia, bere olerki-idazti eder, bilduma txukun bategaz euskal alor landerra, aberastuteko etengabeko ekiñean. Oraintsu, Goiznabar izenaz Bilbo'n argitaldua dozu irakurle; egillearen 20 urtebarruko bertso-lan bereziak dira, bere gaztaroko, len-aldiko urre-bitxiak. Onaindia (Aita Santi) oso ezaguna da euskel-elerti barrutian. Izneurtu ta itz-lauz berein idazlan eredugarri ta baliotsuz ornidu ta argitu gaitu, itxaropena ta poza damoskuen egunik egunerako lanbide aintzagarriz. Bere idaztietatik batzuk aipatzeko: «Milla Euskal Olerki Eder», «Bergili'ren Idazlanak Osorik», «Onbidea», «Enbeita oleskaria», «Gure bertsolariak», Rabindranat Tagore inditar olerkari ospetsuaren «Iru Poema» ta, abar ta abar... Ainbesteraiño ditu! Bai ete da Euskalerri osoan iñor gure Onaindia'ren barri ez dakianik? Orrez gaiñera, beraren zuzenbide ta ardurapean argitaratzen dira Olerti (au ixilazia dogu oraingoz) ta Karmel. Aipagarria batez be, Olerti; aldizkari oni esker, gure olertiak gorapen, aurrerabide ikusgarria egin dau azken urteotan; ziurtasunez esan geinke, bere orrialdeetan agertu izan dirala gure gorengo olerkarien poemarik bikaiñenak.

Karmel be, geroago ta iantziago, sakonago datorkigu, idazlan giartsu ta atsegingarriz. Aita Onaindia lako asko bear gendukez euskeraren onerako! Onelako euskeltzale askoren bearrez arkitzen da bai gure erria; gure elerti lander oiñez ikasi barriari bultzada sendo, bizigarri, iraunkor, adoretsu bat emoteko.

GOIZNABAR lau sailletan dator 1929-1950 garreneraiñoko bilduma ontan. Aunitz eratako olerkiak: iankotiak, maitasunezkoak ta, aberkoiak batez be, neurri lotuan idatzitako neurtitz biribillak; olerki biozberatsu, sentikorrak. Danak bikainki, maitasunez oretuak. Guda aurreko zenbait olerkari ospetsuren olerkera, kutsu ederra nabaitzen dako, Orixe, Lizardi, Lauaxeta'rena batez be, ta, baita atzerritar klasikoena: Orati'ren bidez daurkigu aldizka. Ona emen «Gaztaro»:

Opal-maiko eun ostean didarka gizonari
maite-zotiñak darioz Jaunaren biotzari.
.....
biotz garbi-eske dago opal-maian oiuka;
ni, barriz, eskar gaiztoko, beragandik igeska.
Baitegi illunean soillik, eztau iñor be lagun,
eta bakartasun artan deadar dagist itun:
iges ene seme? Nora ta zegaitik laztan?

Olerki gantzutu sentikorra benetan. «Iges ene seme» dirausku, «nora ta zegaitik?» Onela darrai azkeneraiño maitasunezko intziri, sugar-bizi maitagarrian itz barrentsu, ederrakaz poemarik onenetariko bat osatuaz.

Bigarren saillekoak erri-min, aberri-miñez oretuak dira, 1936-1950'raiñoko aldi itunean. «Ondamena» «Saseta il da» «Ur egalean» «Sua» «Euria ta Uria» «Odol mendi» «Basoan illa» «Lur emotea» «Gau-oiuak» ta... zenbatzu geiago! Guda negargarri baten ondamendizko bizigiro estu, garratz baten semeak dira; min-oiñazezko, negar-oiu biziak... olerkariak bere ibilietan, gudariakaz batera iazo ebazan nekaldiko gurutzbide, biozkadak, pausoz-pauso, gudazelai ta mendietan, Bizkai-zear bizi izan ebazan eztenkada latzak.

Onela lerkai ta balapean ibilli izan giñanok ondo dakigu egoera mingots aren barri, Picasso'k ez-lako lauki biziak dakarkiguz olerkariak bizion oroimenera. Ona emen «Sua» Gernika erre zaneko «Sua». Neron batek be, zerbait emongo eban onela su-moltzo eder baten su ta gar erria ikusteagaitik... Baiña, tristea zan, negargarria...

«Amaitu ezindako eztanda gaiztoa,
gordeleku billako jenteen arrapala...
inpernu bizia dok Gernika osoa...
.....
Kiskal zakustaz dana, gar, errauts egiña...»

Urte asko igaroarren, olerkiok oraindik gaurkotasuna daukoe askorentzat, ta gaurkotasunez iraungo dabe aldi batean. Gaurkotasuna batzuetan iraunkorra izaten da, ta beste batzuetan igeskorra, egun batetik bestera edo une berean aldegiten duana. Olerkari bakoitzak bere nortasuna izan oi dau, bere olerkera, ta egia esan, gure olertiak bide barriak bear ditu ta bide barrietara eroan bear dogu, eredutzat etxeko ta kanpoko onenak artuaz gero, geure izkuntzaren zuztar bizietan gogoa sakondu ta apaindura ta doaitasun ederrenaz bildurik edozein tokitan, ludiaren aurrean lotsik barik burua arro iazotzeko duin izan gaitezan. Baiña, ez, ez gaitezan «keri», barrikeri utsetan gelditu. Onaindia'ren olerkiok ez dira akatz bakoak, baiña, astiro irakurriz, gari-buru alez beteak arkituko dozuez bere lenaldi, gaztaroko poema biozgarri auetan.

MUNIATEGI'TAR SABIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra BILBAO - Casco Viejo Tendería, 15 eta 16

1.933-gn. URTEAN, ELGOIBAR-EN OSPATU ZAN EUSKAL-IDAZLEEN BATZARRAREN ZERZELADA

Lotazilla'ren 15-eko AGUR amabosteroko onek, argazki polit bat ekarran.

Argazki gogoangarria, an izan gintzazan euskal-idazlientzako. ÖROI-APURRAK deritxo barrenean dakarran idazlanari, «IRA'K» idatzia. Eta bere idazlanaren asikeran, auxe esaten dau: «Au edertasuna!» «Ez ote zazkizu itz oriek bururako, irakurle, argazki ori begiratzean?»

Niri bai; biotz-zarradea nabaitu neban argazki ori ikustean. 1933 urteko garillaren 30 garrenean izan zan euskal-idazleen batzar ikusgarri aura. Neu be, antxe izan nintzan, eta batzar orri buruz orduan idatzi nuen zertzelada, ber-azaldu nai neuskitzue, zer izan zan eta zer girotan ospatu zan ikusi dagizuen.

Or daukozue ba, orain 39 urte idatzi neban lantxoa:

«ABERRI» REN OMENERA BATU ZIRAN EUZKEL-IDAZLEAK «EUZKEL-IDAZLE BATZA» SORTZEA ERABAGI EBEN

«Aberri», aintxinako idazle azkar ta ospetsua omendu, eta aldebatera, an egingo zan idazleen batzarrera eldu bear gebala-ta, igazi zan igandeko goizeko bederatziretan, Atxuri'ko geldokian giñan, Elgoibar'erako asmoz.

Ez giñan bakarrik. An aurkitu gebazan Lauaxeta, Oraitz, Artibai, Barrensoro ta Basatxori bat, asmo bardiñagaz.

Otxolua'k, goizaleagoa izan-edo-ta, aurrerauko bultzian iges egin euskun.

Bultzi leioa-zear sartuten zan eguzki bigun eta aize piriak laztanka giñuzala, eldu gintzazan Durango'ra igarri barik, eta ona emen nun datorkuzan Kardantxillo, Agarel, Gogorra, Mañariko, Belaustegigoitia ta Errotarri.

Agur pozkor ta maitekorra egin ondoren, guztiok kontu-kontari, barriketaldi gozoan jarraitu gendun, areik eta amaikak aldean eupada zoli batek, Elgoibar'ko geldokian giñala adirazo euskun arte. Batzarrari asikera emoteko guri itxaroten egozan idazletalde aundiaren eupada zolia izan zan eupada a.

Bultzitik jatzi giñaneko ango bosteko estutze ta besarkatzea! Agur anaikorra axe euskal-idazleok alkarri egin geuntzona! Eta bereala, Batzarrera zuzendu gintzazan.

Beingoan, Batzar-Etxea gonbururaño bete zan idazlez. «Luzear» eta «Aberri» egozan mai-buru. Luzear'ek Kirikiño ta Lizardi'ren gorezpena egin eban. Eta jarraituaz onela iñoan: Idazleen elburua izan bear dala, idazleak batu, idaztera beartu, aldizkingi ta abar sortu, idazti ta abar irazerazi ta idazlan bidez euskera indartu ta sendotu».

Une onetan, «Ayanbe»ren eskabidez eta batzarraren on-eretxiz, maiburua ugaritu zan. Emakumeen ordezkari lez, «Tene» jarri zan. Bizkaitarren aldetik, «Lauaxeta». Ta danen buru lez, lendakari lez, «J. Elgea».

Onek, itzaldi mamitsua zuzendu eban, zeintzuk bide jarraitu bear dauzan euskalidazleak azalduaz. Ondoren sortu zan eztabaidan, oneik ekin eutsen sakonkiro: Uzturre, Mendilauta, Belaustegigoitia, Barrensoro, Altzeta, Artibai, Aloña, Lauaxeta, Otxolua, Ayanbe, Biriatu, Labayen, Lizarregi, Zaloña ta Txaldartxur. Gazigarririk asko izan eban jardunkizun orrek. Batzuk eta besteak, euren eretxiak ondo gogalduta eta asmorik zintzoenakaz azaldu ebezan, euskel-idazleen batzar bateri yagokozan bentasun eta anaitasun andienagaz.

Bereala, lendakariak galdera au egin eban: «Euskel-Idazleen Batza sortu bear da ala ez?» Eta Batzarrak ao batez baietz erantzun eban.

Ondoren, bein-beñeko batzorde bat autu zan, illabi barru araudigai bat gertau ta beste batzar batera dei egiteko. Batzorde au osotuten dabienak oneik dira: Irular, Lauaxeta, Tene ta Ira emakumeak, Ayanbe, Basanaitz, J. Elgea ta Luzear.

Berandutxo be ba zan eta batzarrari andikiro amaya emonaz, bazkaitara zuzendu gintzazan guztiok, «Mirentxu»ren etxera.

«Mirentxu» lanpetua ebillan guri bazkari ederra gertatzeko alegiñetan. !Eta bai bazkari ederra emon euskula benetan! An zan agiñotsa! Ango atzamarrak miezkau bearra! Ez zan arritzeko, ain egoki sukaldutako bazkaririk ez dogu jan aspaldian! Zorionak «Mirentxu» eta eskerrak ain ondo artu giñuzuzelako.

Azkenetan gengozala, «Mirentxu»ren alabatxu batek lora-txorta ederra eskiñi eutsan «Aberri»ri, maikide guztien txalo artean. Onetan, jagi zan «Basarri» olerkari jatorra, ta bertso biotz-ikuitgarriak jaurti eutsozan omenduari, «Aberri»ri. Ori dok yasa Iñaki!

Abesbatzak be laster sortu ziran. Ba zan abesti ederrik an! Lakatza ta Barrensoro'ren abotsak besteen ganetik urteten ziran. A zan abestutea! A zan giroa!

Txistulariak be sortu ziran; idazleen artean sortu be: Litargi ta Lakatza ez dira gero edonor txistuarekin!

OPARI BAT «ABERRI»RI

Akeit-orduan «Luzear»ek, guztion izenean, urrezko idazkortza ta guztiok izenbetutako agiri berezi bat eskiñi eutsozan «Aberri»ri. Giro ederrean gengozalarik, uste baiño len amaitutzat utzi bearra izan gendun ain begiko izan jakun Elgoibar'ko jai aura. Bilborako bultzia geldokiratu zalarik, arñiketa larri baten ondoren, itxumustuan sartu bearra izan geban, bultzian.

BATZARRERA ELDU ZIRAN IDAZLEAK ONEIK IZAN ZIRAN

Aberri, Ikur, Atarrene, Altzeta, Otarra, Anastaxio, Atxuri, Zonzezke, Zebain, Aingeru, Goikolako txoria, Leizape, Luzear, Txaldatxur, Izparkar, A-BI, M'tar G. Lebitarra, Andoni, Biriatu, Aloña, Basarri, Txaranbel, Euskal Ikastolako pianista, Alberdi, Muru-mendi, Ixaka, Miren'en alaba bat, Mokoroa, Mujika, Itziartxo, Lizarregi, Ayanbe, Mendi Laula, Arantza, Maitxo, Intza, Zorrozpe, Txori Erreka, Intxirri, Jo ta ausi, Txirri, Aritzeta, Uzturre, Larraitz, Zimitz, Yolande, Arantxa, Armoya, Arkaiz arte, Txiki alai, Otxolua, Dris dras, Zapelaitza, Goxo goxo, Lakatza, Kaiku, Aixerixa, Goirole, Litargi, Udala-mendi, Larrealegi, Azpitarte, Garate, Kardantxillo, Errotari, Gogorra, Egi-alde, Belaustegigoitia, Barrensoro, Artibai, Abertzale, Oraitz, Agarel, Abeletxe, Basatxori bat, Jexuxa, Ira, Basanaitz, J. Elgea, Mañariko, Tene, Burni-bide, Xapi, Murugain, Endoya, Gurutz-ondo, Arno-mendi, Andoni ta Lauaxeta.

Ordezkoak bialdu ebezan Baso lore, Zapel, Txanbolin, Ernaizu eta Kukupeta'k.

URRUTIDATZEZ EUREN AGURRA TA ERASPENA BIALDU EBENAK, ARA EMEN:

Ernaizu, Arresigor, Txadon zaia, Lekonde Zudupe, Atxondo, Maitane, Muru-mendi, Talo, Iziartxo, Arrugain, Amagoya, Uretabarren, Irular, Larreko, Urreta, Miren Karmele, Erlomendi, Igerra, Iturri txiki, Oñazkarra, Beristain, Ibiritxo, Nikomedes, Ulazia'tar Esteban, Maria, Bene, Fide ta Arantxa, Arrasate, Aitzol, Lete, Zeleta, Agrretxe, Belu-mendu, Maite, Orixe, Arripe, Arri-Gotzon, Luistar, Itxasgain, Zugazti, Ixilik, eta Otzategitxu'ko Jon.

* * *

«Au edertasuna!» esaten eban «IRA'K» idazleak, bere idazlanean, eta orduko argazkiaren azpian.

Gorago ikusi dozuezan izengadetan, itz orreik egiztatuta dagoz. Bai jaunak! axe zan edertasuna ta axe zan batasuna!

Nire aldetik, eskerrak «IRA'K» idazleari, batzar gogoangarri aura gogorazi daustalako. An bata bizi geranokin eta inguruan darabilguzan euskel-idazle bulartsuekin, ez ete dogu asmauko besu alako batzar entzungarri bat?

Euskel-idazle errikoien udabarria laster datorku. Batuko ete gara ba, aurten, besarkada andi batez?

ABELETXE

«ABERRI»REN IDAZKI BAT

Ikusi dozuen, orduko nire lantxoaren azpian, Osoro'tar Gotzon, «Aberri»ren idazki bat azaltzen zan. Auxe iñoan:

«Eskerrak milla ta milla esker euzkel-idazle guziei, batez ere «Mirentxu» ta «Maitxu»ri, mutil zar oni arriua egiteko modua egin dutelako.

Elgoibar'ko abertzaliei gerrikoagaitik. Gaztetxoei musuzapi polita ta gañera lore-txorta eskiñi zidatelako.

Au idazten duan idazkortza berriz! Onelakorik! axukre koxkorra ta merengia baño ere goxoago irrist egiten du onek ingi edo paperaren gañian. Au gauzaren gauza eman didate idazleak! Iiño! Onelako ixtrumentua arrapatu izan bagendu guk garai batean, makiña bat lerro geiago idatziko genun ta kurioxuago.

Emendik aurrera idazkortz onekin naita naiez goxo-goxo idatzi bear. Bearko!

Berriz ere eskerrak ba, ta urren arte.

ABERRI

NERE ILLOBA XABIER

Urte mordoa da gure anai Yosu Venezuela'runtz joan zala. Bera ezkondu ta emazte Yosebe'kin New York barrena zijoala ikusteko poza izan nuen, eta ordurako... urteak ziran ez giñala elkarrekin egon! Eta arrezkero, bein bakarrik izan dugu bera berriro ikusteko zoriona; gure gurasoen urreeztayetarako bildu giñanean.

Geroztik, beste amar urte igaro dira, ta jakiña, gure senideen artean bera bakarra izanik inguruan ez dagona, gure anai Yosu'taz noiznai oroitzen gera, eta bera dala bide amaika gogoeta egin ere bai... «Atzerrira joaten diran geyenak izan oi duten zoria ote berarentzat? Alegia, urteak joan eta urteak etorri, sustrai berriak bota eta lotura gogorrak egingo ote? Eta batez ere, semeak azi ondoren, zenbat eta geroago ainbat eta nekezago izango ote zayo ango lokarriak eten eta aberriratzia?»

Ontan, uda-asieran, ustegabeko berri on bat bidali zigun Yosu'k: «Gure seme gazteena, Xabier, orruntz dijoa udako oporraldiak igarotzera. Bere lengusu Kepa Arbide'nekoak dei egin dio, ta bat-batean gertu zaigu Oyartzun'era joateko. Bere erabaki orrekin arriturik utzi gaitu, bañan or izango duzute laster».

Albiste ona zan orixe, orratik! Ezagutzen ez genduen illoba bat zetorkigun Venezuela'tik! Xabier besarkatzeko irrikitzen geunden etxeko danak. Benetako poza zabaldu zan gure artean.

Iritxi zan, bada, eguna, eta egazkiñez ibillaldi luzea egin ondoren, ementxe azaldu zitzaigun Xabier bere lengusu Amaya'rekin. Ezagutzen ez genduen illoba aurrean genduelarik, ba-zirudin jan egin nai genduela begiekin. «Yosu'ren antza du bere begitartean!», zion batek. «Egituran, berriz, Yosebe'rena!», beste batek. Danok arkitzen genion gure sendiko arrastoren bat. Bitartean, Xabier patxara aundikoa arkitu genduan, batez ere, bederatzi urte besterik ez zituela jakiñik.

Orrela, uda ontan, nere illoba Xabier'ekin maiz egoteko aukera izan dut. Bion artean, emengo ta Venezuela'ko berriak askotan astindu ditugu. Ango bizimodua eta gurea. Ayek bizi diran La Victoria erria nolakoa dan. Ze ikastoletara joaten zan eta abar. Eta bein, bere lagunetaz galdetu nionean...

—Bai, ba-ditut lagun batzuek ikastolan; oso onak dira danak.

—Ikastolako lagun oyekin jolas egiten al duzu kalean ere?

—Ez...

—Zer, ba, Xabier?

—Nik ez dut lagunik kalean...

—Nola diteke ori?

—Edo egia esan, osaba, lagun bat bakarra dut ikastolatik kanpora. Leo du izena berak.

—Eta Leo zure adiñekoa al da?

—Ez. Ni baño pixka bat zarragoa da, bañan Leo'k ez daki batere irakurtzen eta idazten. Atzeratutako mutil oyetako bat da...

—...

—Leo gizarajoak ez du ni beste lagunik; ezta bat bakarrik ere! Eta orregatik, ikastolatik irten ondoren, biaramoneko lanak egin, eta berealaxe Leo'ngana joaten naiz berakin jostatzera.

—Egunero egiten al duzu ori?

—Bai, osaba, egunero... Ikusiko ba-zendu ikastolatik etxera eltzen geranean, eta Leo ortaz oartzen ba'da, kalera irten eta nolako lasterrak egiten dituen oyuka ta neri deika! Eta nola besarkatzen naun!

Itz oyek esan eta ixildu egin zan nere illoba. Bere begi aundi-ederrak zabal-zabal egin eta betille luze-apañak gora ta bera astiro zebilzkiela gelditu zan. Ba-zirudin, antxe, begi aurrean zeukala une artan Leo, La Victoria'ko bere lagun gizarajoa.

Andik egun batzuetara, gurasoen eskutitza artu zuela esan zidan. Aita eta ama bezela, bere bi anai Yosu ta Yoseba ere ongi zeudela ta pozik...

—Eta zer dio Leo'k?

—Bai... Nik La Victoria'tik alde egin nuen ezkeroztik, nere billa egunero azaltzen omen da gure etxean, eta negar egiten omen du ni arkitzen ez naulako. Nola ote dago Leo gizarajoa? Jolasteko lagunik gabe... Beti bakarrik...

Udako bi illabeteak igaro dira, ta Venezuela'runtz joan zaigu Xabier. Etorri bezin patxara ederrean artu du egazkiña bere lengusu Amaya'rekin batera.

Nere illobak alde egin dun ezkeroztik, noiznai ikusten ditut —nere baitan— Leo ta Xabier. Au, ikastolatik irten, biaramoneko zeregiñak bete, ta berealako batean Leo'ngana joaten... Antxe biak bakarrik eta egunero! elkarrekin jolasten... Askotan, ixil-ixilik, itzik ere atera gabe..., bañan bata bestearen ondoan...

Ze ikasbide ederra guretzat! Guk ere, Xabier'ek bezela, zenbat on egin ote genezake? Lagun urkoari on egiteko zenbat aukera!... Beti bakarrik egon oi dan bat ikusi, noizik beinka bedere... Atsekabetuari biotza piztu arazi... Lur-jota dagonari besoa eskeñi... Erbestetua —al danean, beintzat— besarkatu... Gaxorik dagonari ikustaldia egin... Eginkizun oyek ez dira ain zallak, eta gugandik ez dute eman-bear aundirik eskazen, bañan orrelako egintza onik egin gabe dijoazkigu egunak...

Nere illoba maite Xabier, ez dakit urren noiz ikusiko zaitudan, bañan egon ziur ez zaitudala aztuko egundaño, eta gutxiago zuk egunero ematen diguzun ikasbide eder ori!

OÑATIBIA'TAR YON

AUNDITASUNA

Ba-dira mundo ontan aundiak diran gizasemeak. Norbait adimen argiz yantzita ba'dago, ospe-mail goreneraiño eldu daiteke, bizitzean zear aaztu ezin leiken ildo argitsua betiko itziaz.

Beste aunditasuna, ertirako doaiaz apainduriko gizonengandik datorrena da ere. Aunditasun onek erti-lan ederrak sortu-arazi ditu, ta oneik egillearen gorengotasuna eriotz ostean aldarrikatzen dabe.

Aipatutako gizonak geienetan gizakideen oniritzi ospe, ta aberastasuna lortzen dabez, eta beraz, biziera nasai ta zoriontsua izaten dabe. Oneik dira ludiko maite ikusiak.

Baiñan ba-da aunditasun orreik baiño gaillenagoa dana. Bizitzean zear gurutz bateri besarkatuak igarotako gizon onak, zintzoak, goiburu bateri dana eskeiñi dabenak. Esku-arrean ongi-izatea izan eben areik, eta erriganako maitasunaren maitasunez dana itzi ta jazarkundearen opari-gaiak gertatu, Espetxea, erbesteratze samiña, txirotasuna, askoren destain eta irria, orra or orrein uzta ugaria...

Onek aundiak dira benetan, arima erraldoieko gizasemeak. Zuek bai aundiak, erriarentzako illuntasunean agertzen diran itzali eziñeko argi biziak. Aaztutasun eta berekoitasunaren aurka yagiten dan dei bizi, ixilleziña, malkoetaraiño iñarrosten gaituen oiu deadartsua.

Eta ilten zarienean, iñoizkorik bizien ikusten zaitugu. Zuentzat orain itzali eziñeko bizitza asten da. Zuen urrutiratzeak naigabez beterik izten gaitu. Ezin erosi daikegun zerbait kutunen galdu dogu, ta malko mingotsak barru-barrutik gogo-gau illunean darioguz.

Illak, aberria egiten ei dabe... Orregaitik noski gure atsekabe betean, itxaropenaz egindako argi bizi bat, alde guztietara izpi bizkortzailleak edatuaz, gero ta aundiagoa nabaitzen dogu... Gero ta urrago, gero ta gureago... Agur, agur t'erdi Yoseba.

ZUBIRI

APAIZAK ETA EZKONTZA

Lantxu au ez da apaizen ezkontzaren alde egiteko. Ez kontra, ez alde. Erroman oraintzu egin dan Sinodoak argi azaldu dau gai au. Apaiz-bidea artu nai dabenak ezin ezkondu leitekez Sartalde-Elizan. Erabagi onek Aita Santuaren izenpea dau ta izenpe onek indar osoa emon dautsa erabagiari oraingoz beintzat. Eta apaizgoa itxi daroenak? Oneik ezkondu leitekez? Gai au zaaldu nai dot labur-labur. Erriak oker asko ta aundiak daukaz auzi ontan. Gauzak nastatu egiten dauz. Irakurleari argi apur bat egiteko asmoz eta gurariz egin dot lantxu au.

Barriketea ta zer-esana ugari dabil apaizak dirala ta ez dirala. «Ta eundak eta millak ezkondu dira apaiz-jantzia eskegita. Jaungoiko laztana! Gure zaarrak barriro munduratuko ba'litzakez! Siñistu be eleukie egingo. Bai, bai Elizeak ondo be ondo agertu dau oraingoan enbudo-legea; alde zabala bereentzat eta estua besteentzat. Zergaitik onartu Elizak apaizak ezkontzea? Euren bizibidean aspertu egin diralako? Lenago obeto pentsatu baiño ez euken. Amar, ogei, berrogei urte apaizgin tzan arima-jardunetan eta gero ezkondu? Ta bitartean ainbat, milla ta milla ezkondutako estu ta larri bizieziñik eta buztarri-pean jarraitu bear. Au ez da ondo. Au ez da zuzena».

Askorentzat apaiz-eragozpena ta ezkontza-eragozpena bardin dirala dirudi. Ta ez da. Ezkontza-eragozpena gizadi-legea da; Jaingo-legea, au da, ezkontza-izakeran berean eta jainko-iragarpenean dau oiñarria. Apaiz-eragozpena elizagindua da, au da, Elizak jarritakoa. Elizak eragozpen guztiak kentzen ditu arrazoi aundiren bat dagoanean. Orain arte ez dau emon erreztasunik apaizgoan. Ez ezin ebalako, ekarri edo sortu-erazi leikeazan gaitzak aundiagoak izango zirala uste ebalako baiño. 1962'garrenetik onuntz erreztasunak emon ditu. Apaiz askok itxi dabe apaizgoa ta ezkontza-bidea artu. Elizak au egiteko eskubidea dauko berak ipiñitako legea bai zan bestea. Ez dira nastatu bear gauzak. Ez dira neurri bardiñez neurtu bear apaiz-eragozpena ta ezkontza-eragozpena. A Elizak jarri eban eta nasaitu ta kendu leike; au Jaungoikoak edo ezkontza-izakerak jarria da-ta, Elizak ezelan be ezin kendu leike.

Iñoz bai, iñoz kendu leike. Benetako zergaitiak azaltzen ba'dira ta ezkontza osotu ezpa'da, Elizak ausi leike ezkontza-lokarria.

Apaizgoa ta ezkontzea ez dagoz alkarren aurka. Argi agiri da au edestian eta gaur be Sorkaldeko Eliza Katolikoan apaizak ezkonduak dira. Elizak eragozpena jarri eban asieran eta onela izan da 20 gizalditan, baiña kentzeko eskubide ta almen osoa dau. Erroman oraintzu izan dan Sinodoan be zutik geratu da Sortaldeko apaizak ezkontzia.

Bigarren Batikano Batzarraren ondoren Elizak erreztasuna emon dautse apaizai ta askok itxi dabe apaizgoa ta ezkontza-bidea artu. Euskaldun apaiz batzuk be egin dabe au. Bai abadeak, bai prailleak. Ezkontza-biziera artu daben apaizak ezin jardun leikie apaiz-eginkizunetan; onela erabagi dau Elizak gaur arte beintzat.

Apaizari ta Elizari arriak jaurti ta jaurti ibilli barik, bakoitza bere bizi-era-eginbearrak ondo betetzen arduratzea askoz obe.

GOIRIA

ZUBIRI

GERRI-LOTURAK

AZPI-JANTZIAK

SOINKERA-LIRAIÑAK

Artekale, 50 **BILBAO-5**



OTAZUA

OIÑETAKOAK

OSKI ERABAKARRAK

Ikasleentzat
Ballet-dantza } Bereziak
Oin-ondutze

Artekale, 20 - Correo, 6
21-40-58 Urrut. **BILBAO-5**

JOSKERA BARRI TA GALTZETORRATZEKOAK

Guerricabeitia

BOUTIQUE

Artekale, 32 **21-65-67 / 24-89-65** **Urrutizkiñak**

B I L B A O - 5

IRABAZITAKO OMENALDIA

Joan dan illaren emeretzian, Bilbo'n, San Anton'go eleizan omenaldi bat opaldu yakon Arturo Intxausti jaunari. Eleiza organu-jotzaille, berrogeitamar urteetan izan dalarik, omenaldiko zatirik garrantzitsuena bost abadek esandako alkar-mezea izan zan, ta bai ederki San Anton'go abesbatzak Intxausti jaunak berak egindako euskal mezea abestu. Meza ondoren Intxausti'ri parrokiak eskeiñi eutson bertako urrezko domiña ederra, baita larrutx-pergamino bat ere. San Anton abesbatzak, bere aldetik, urre ta bitxizko ezaubide-insignia bat eskeiñi eutson. Dana bazkari dotore bategaz amaitu zan.


Omenaldi ori ez zan izan irabazita eukan aiñakoa, baiña bai zintzoa ta bero-beroa. Ba, parrokiko illeroko orritxoak iñoan bezela, San Anton'en diru gitxi dabil, baiña bai biotz aundiak eta beroak.

Intxausti jauna oso ezaguna dogu Bilbo'n, baita beste erri asotan ere. Orgonu-jotzaillerik, ezbairik barik, onenetarikoa dogu; eresi-musika zale purrukatua. Lenengo Begoña'n eta gero San Anton'en, berrogeitamar urte luzeetan argitu ta goraldu ditu eleizkizunak. Orrezaz gaiñera, La Coral deritxon abesbatzaren bigarren zuzendaria; erri-eskoletako eresi-arduraduna; baita berrogeitamar urteetan Conservatorio Vizcaino'ko irakasle be izan da. Bein baiño sarriagotan, beronek organua buruz jotzean pozezko negar biguna egin dogu. Bai eleizkizunetan edo musika-irakaskuntzan ordu asko betetan ebazalako, eresia idazteko asti aundirik ez dau izan. Baiña ba-ditu berak idazitako lan batzuk, ainbat lan bai euskeraz naiz erderaz eleizan abestutekoak: iru meza, bat latiñez eta bi euskeraz; bata abots batera ta besteak iru abotsetara, ta abesbatzari lagundutearren beste lan batzuk abots askotara, baita libururutxu bat sei gabon-abestirekin be. Abestiok oso ederrak, baiña bi, munduan onenetarikoak nire ustez. Euren izenak: «Ai au gabaren» eta «Polit-Ederra».

Bere lanak, bigunak, zoragarriak eta barru-barrutikoak dira. Tamalgarria da, gizon orrek dakian beste eresi jakinda, ain barruko diran abesti geiago idazteko astirik ez izatea.

Bilbotar geienak bezela, Intxausti jaunak ez daki euskerarik. Baiña bai maite euskerea ta, berberak sarritan diñoan legez, euskeraren agots-fonetikak emoten ei dautso etorri-inspirazio berezi bat eresia sortzeko. Ainbeste urteetan gure artean izan dogulako, bertako eleizkizunak biziak eta atsegiñak izan dira beti. Izan be, nire ustez, liturjiaren bizitasun eta ederraren erdia baiño giegao organu on baten lagutzea da.

Intxausti jauna, oraindik geugaz dogu, adoretsu ta itxuraz dituan baiño urte gutxiagorekin. Jaunak indarrak eta barruko argitasuna luzatu begioz. Bildur naz gure artean zer jazoko ete dan geroago ta organu-



jotzaille gitxiago ditugulako. Emengo Conservatorio'an ez da organurik irakasten, eta gure artean organu-jotzaille barri on gutxi izango ditugula, orregaitik da nire bildur ori.

Euskalerria eresi-zale abeslari ona izanik, Jaunak lortu dagizkuzala ereslari barri asko ta onak. Jakintzaren onerako ta erriaren kultura ta atsegiñerako.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

Erri - Erri - Erri - Erri -

Arratia

ARANTZATZU.—Lurrez txiki, biztanlez urri; ARANTZAK baiña eztena zorrotz eta beti urduri. Erri onen kondairan lenengo antzerkia il ontako 8'garren gauan.

Antzokitik at, kanpoan izotz leitua aginduten asi zanean, leporaiño betea izan zan barru barrena txalo-otsez berotzen ari izan zan.

Arnasa barria ta Erria'ren zustraiak biotzaren sakonean errotuta daukazan gaztedi arduratsuak «Oiartzunak» abestaldeak lagundurik, gabon-antzerkirik politeneitakoa eskeindu euskun, orain berreun eta berrogetamar urte aramaiotarren batek idatzitakoa.

Agur, bada, ARANTZAK eta OIARTZUNAK. Jarrai txalo-ots sutsuak entzuten deia izan dozuen toki guztietan.

* * *

Onton'go Barrenetxea'tar Jose, lur nenetsu ta latz onetako kezka-naigabeak bizirik garenon bizkar itzi ondoren, eta Jauna'ren deiare erantzun baiezkorra emonik, «gero arte», agur egin dausku (G. B.)

Adizkide baketsuaren ama minduak, eta anai-arreba atsekabetuak, otoietan lagun gaitue.

* * *

Erriko-Etxean bizi diran Manolo-Begoña senar-emazteak negu-lorea izan dabe.

Izenez (Iñaki) euskaldun egin dozuen semetxoa izatez be euskaldun izan dadin, alegindu zaiteze!

* * *

Iurre ta Zornontza bitartean negarra besterik ez da izan joan-barriak izan diran egunetan. Ogeitalau urteko neskatillaren odolez gorritua izan da lurre'ko bidegurutz bildurgarria. Non dira erriagintariak berebildunei astitsuago ibiliarazoteko? ala il-metak jaso ta osotu bear ete doguz negarrezko arazo okerrak zuzentzeko?

* * *

Julian orozkoarra ta Aniz mungiarra (orain plentziarra) biak dira euskaldunak eta biak dodaz ezagun-ezagunak. Ba-dira, baita euskeraren arnasa sakontzen arduratu ez diranak. Eta Bilbo'ko zubi baten ganean norbaitek euskerazko zerbaik irakurten eutsoelarik, arritu egin ziran euskera idatziaren txukuntasuna entzun eta ikusirik. Ba-dakizue ba, adizkideok, badirala uler-errezean egiñak diran irakurgai errezak. Arpidetu zaiteze.

Irakurle guztiei ZORIONIK gartsuenak.

LANDAJUELA'TAR A.

Azpeiti

Gauza asko esan ditezke aldi ontan. Bateko, Mendizaleen «Zillar-eztaiak» beren itzaldi eta gaiñerako ospakizun; besteko, «alfabetatze» edo euskerazko irakur-idazketan egin dituzten jardunaldiak dirala, azkenik, Ikastolari buruzko itzaldia «Soreasu» antzokian.

Besteak beste-luzaroago eta oparoago adieraztea zor litzaieken arren -gai bat bakarra azalduko dugu oraingoan. Ikastolako arduradunek antolaturik, inguruetako guraso guzientzat izan zan A. Goena jesulagunaren itzaldi mamitsua.

Irureundik gora izango ziran entzuleak. Etzan, bada, eguraldi ederra jende asko biltzeko! Eta ala ere! Ba-dago egarririk, egia esan. Zorionean!

Jakiña, Ikastolak eta etxeak, biek batera jokatu bear dute. Zenbat-eta alkartuago jokatu, ainbat-eta obe aurtxoentzat. Ortara zetorren Goena jesulagunaren itzaldia: bi alderdiak argitzera eta alkarrekin lotzera.

Umetxoen izaera berezia adierazi zigun «Umea beti ume» da euskal-esaera. Ala da izan ere. Ume, bere joera guzietan eta bearretan; ume, bere akatsetan eta bere alderdi onetan. Esan bearrik ez, ume diranez artu bear dituztela, beraz, bai gurasoek eta bai andreiñoek. Eta iñola ere ez, gizon naiz-ta emakume txiki batzuk ba'lira bezela. Akats andiegia litzake ori ezitzailleentzat.

Gauza jakingarri asko esan zituan gurasoentzat. Ala zioten batek baiño geiagok: «Mundu berria ireki digu. Ba-daukagu ikasi-bearrik aski!» Ez da gutxi benetan konturatzea

Ikastolari buruz ba-daudela zenbait kezka, ez da iñorentzat ezkutuko gauza. Askoz gutxiago, berriz, A. Goena'rentzat. Kezka oien erantzuten saiatu zan izlaria azken-aldera. Bide onetik doazela Ikastolak, esan zigun. Osoan artu-ta, noski; joera eta zenbait saiaketa gogoan diralarik, alegia. Azkenik, Eziera-Lege berriak gauza berritzat aitortzen dituan zenbait zeastasun izendatu zituan. Eta alderdi oietan guzietan, egia esateko, Ikastolak aurrea arturik zeukala aspalditik asita.

Onako aitorpen au gertatu zitzaigun arrigarria: Ikastolen egoera «aurrerakoi» ori guzia Donosti'ko andereiño argi bati, Elbira Zipitria'ri zor zitzaiola. Itz batean, Elbira Zipitria izan dala lenengo andereiño. Eta gaur oraindik ere, Ikastolak zerbait baldin ba'dira, asierako saiaketa aurrerakoi aien «errenta» tik bizi dirala.

Aitorpen ausarta, benetan, A. Goena jakintsuarena. Gaur askok eta askok barkatuko ez dioten aitorpena. Joandakoaren laiño zuntan, kondairaren odei otzetan bildurik, orotzapenen lurraldetan gozoro gorderik aaztu nai dutenentzat, aitorpen mingarria. Eta aitorpen salataria, esango nuke.

OSTAPE'KO KUKU'AK

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN

JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA

ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT

BOUTIKEAK

Martín Aldazabal

TENDERIA, 3

ARRASATE

Santotomasak.—*Aukera onen inguruan, euskal-kutsuz beteriko jai batzuk izan doguz aurten. Larunbata, Lotazillaren 18'gnean, Gurea antzokian, jai polit bat ospatu zan. Euskalerri'ko ereskin zaarren erakusketea. An ikusi ziran eta entzun: alboka, txistu, txalaparta, dultzaiña, turutu ta beste asko. An izan giñanak pozik entzun genduzan. Antolatzailleak, Santa Marina'ko bazkundea eta Udaletxekoak izan ziran. Jentea ere erruz izan zan.*

Egun berean, illuntziko seiretan, euskal-liburu ta diskoen salketa zabaldu zan. Emen, gure AGUR onen agerraldia ikusteko giroa izan genun, eta onen agerkari bezela, ogei urtedun Goirigolzarri'tar Xabier idazle gaztea ezautzeko atsegiña izan neban. Asko poztu nintzan bera ezautzeakin, ain da gartsu ta adoretsua. Gure aldizkariak abegi ona izan zuan eta ezautzen ez zutenak ezuatu dutelako, ondoren ona izango du.

Idazti ta kurpil salketak oso onak izan ei-ziran. Baiez ere, Distribuidora San Migel taldeak. Ez da arritzekoa onen salmenta, bada, ta esan bear da, egokitasun aundiena orretxek izan eben. Zorionak Xabier. Kurpillak ere salketa ona izan zuten, batez ere Kanta-Berri'koak eta onen artean gure Joxe Mari'k abestutakoak.

Beste gauza bat ere nabaitu nuan, San Miguel orren salketa tokian zebiltzan neska-mutikoak, eta urreratuta ainbat umetxu KILI-KILI taldean sartzeko asmotan eta euren izenak ematen ikusi nituan. Asko poztu nintzan ume orrein asmoakin. Gaur egun, Ikastola'n ez dabiltzan umeentzako berezikia Kili-Kili ori da. Beraz, dei egiten diegu guraso guztiei, euren ume guztiak talde orretan sarrerazteko, ez dago ba gaur egun, euskerea ikasi nai duenentzat «alfabetazioa» egiteko obarik. Izenak emoteko: Euskerazaleak, Colon de Larreategui, 14, 2.º, Bilbao, 1; edo, Euskeralagunak, apartado 321, Eibar, aukera biak dituzue.

Gaiari jarraituaz, igandean, goizetik kale-jirak izan ziran: txistulari, dultzaiña ta trikitixakin. Eguerdian berriz, «Lore Gaztea»ren dantza saioketa ta Aretxabaleta'ko txistulariak. Arratsaldean jende asko batu zan, eta orduantxe izan ziran liburuen salketa geienak. Illunabarrean, Oñati'ko «Oñatz» dantzariak. Oso ederto oneik ere. Gero, San Miguel eta Letona'ren bertso saiaketa. Oneik ere ederki. Urrengo, Gesalibar'ko «Txantxangorri»ren abesti jarduna. Zer esan eurotzaz? Tamala, enparantzean ez ziran bear zan bestean gozatu, leku aundi artan ez zan ondo entzuten-eta, baiña olako saioak Gurea aretoan-edo egingo ba'litzaz, ikusi ta entzungo genituzke zenbateraiñoko balioa duten.

Onela, illaren 22'ra eldu gera, Santotomasak ospatzen ditugun egunera. Egun orretan, emengo lantegi batzuk lanean jardun zuten, onein artean Fagor eta Elma'k, eta jende gutxiago ikusi genun. Emengo «Txikitxu» taldeko dantzariak euren saioetan, zein ederki jardun zuten. Eunen bat neska-mutikoren dantzaketak izan ziran. Ba-dago, bai, gure dantzaketarako zaletasuna! Jarrai olantxe gazteak, eta zorionak euren irakasleai. Gero, Sakabi ta Egañazpe trikitilarien saioa. Iaioa da lan orretan bikote au.

Besaide.—*Alkarte onek bere urteroko batzarra izan dau, ta beste arazoen artean, Batzordea onelaxe geratu da: Lendakari, Amezgi'tar Albar; Ordeko, Saenz'dar Yon Y.; Idazkari, Ansoategi'tar Pantzeska; I. ordezko, Aranburu'tar Augustin; Diruzain, Gonzalez'dar Yoseba M.; Batzordekide, Exposito'tar Imanol; Iturbe'tar Yon, Egidazu'tar Yosu M., Aranzabal'dar Yagoba, Baritia'tar Mikel, Axpe'tar Eukeni, Lagunilla'tar Yokin eta Troxaola'tar Alberto. Ta alkarte onek eratuta, argazki erakusketa ederra ospatu da. Irabazi dabenak: 1'go. Muruamendiaraz'tar Yosu, eibartarra; 2'gn Unzetabarrenetxea'tar Andoni; 3'gn San Sebastián'dar Yulen, emengo Besaide'koa. Zorionak danori.*

Gabonak.—*Egun ederra au bere. Goizetik ikastolako neskamutillak kalera urten ziran. Irureun bat izango ziran, ederto abestu ta jardun polita izan zuten, Jaunaren jaiotzari dagokionez. Beste talde bat ere agertu zan: Etxebarria'tar Begoña'ren Eresi-ikastola'ko neskamutiko talde eder bat. Ereskiñak, txistu, auspo ta beste batzuk joaz ibilli ziran kalerik-kale. Oso ederto dana.*

Eriotzak.—*Gure lagun ona izan zan Zeziaga'tar Peli, jaunak bereganatu du. Uriarte'tar Deunoro, «Fati» izenagaz obeki ezagutzen zana ere il da. Ez bearrez, Kanpantzar'eko aldatzean Eriz'tar Errepel ere bai. Baita, il jaku ere, Uribe-etxebarria'tar Gaizkane. Jaunaren bakean, Goin Begoz danok, ta euren senide guztiei atsekabe onetan laguntzen dautsegu.*

Zorionak.—*Olan damotsueguz AGUR onen irakurle ta idazti guztioi, izan dagizuela URTEBARRI zoriontsu bat, eta gure Euskalerri ta Euskerak jarraikera obea, orain artekoa baiño egokiagoa.*

UDALAITZ

Donosti

Bai jaialdi ederra izan genula, Lotazilla'ren 21'an, Antzoki Zarrean. Orixe Elkarteak, «Santa Mari» Ikastolarentzat diru laguntza biltzeko eratua.

Koru'ko Andre Mari'ren «Schola Cantorum», «Kresala» ta Hazparne'ko dantzari taldeak, dantza saio politak eskeñi zizkiguten.

Abeslari talde iaioak ere ba genitun: «Gaztelupe» Zortzikotea, «Donosti-ereskin» abesbatza, «Oskarbi» taldea eta «Schola Cantorum» abesbatza.

Lenengo zatian, Mendizabal'dar Alex ta San Sebastian'dar Inmaculada'k, zoragarri jo zuten auspo soñua, eta bigarrenean, Etxeberria'tar Txairo'k alaitu gindun bere ereskiñaz.

Etxebeste'tar Joxe Mari, aurkezle iaioa izan genun.

Eta guztia osatzeko, Azpillaga ta Lopategi'k, beti bezelako jator eta kementsu bota zizikiguten «bertso» ederrak.

Esan bezela, jaialdi oso osoa izan zan; eta guztia ondo gerta zedin, antzokia bete betea eta asko sarrerik gabe gelditu ziran.

Aspaldian, gutxitan izaten ditugu onelako gauza pozgarriak; eta «Orixe» ikastolak, bere buruausteak pixka bat arintzeko ona izango zan noski.

Baña ez dezagun uste izan, antzerkira joan eta onela diru pixka bat eman eta kito! lasai gelditu onekin naikoa egin degulakoan. Orraindik ere laguntza asko bear du ikastolak, eta bear dun guzia eman dezaiogun! *Orrelako ikastolak* bear bearrak ditugu ta, gure aurrak, biar, bear bezelako gizaki: KRISTAU ta EUZKOTAR ikusi nai ba ditugu.

Lengoan gazte batek auxe esan zidan: «Agur» laxter bukatua zala, geienez beste iru edo lau zenbaki irtengo zirala esan ziotela.

—Orixe nai luteke askoek —erantzun nion— eta batez ere beste «euskal» edo obeto esanda «Euskeranto» aldizkari batzuek. Baña «Agur»'en bostgarren zenbakia azaldu zanerako, Aldizkari oietako batean, gutxi gora bera orixe zioten, oso bizi laburra izango zula alegia. Orduan nik, beste arazo bat ba nun aldizkari orrekin, eta bereala idatzi nien, egi batzuek esanaz... oraindik beren erantzueraren zai nago...

* * *

Oraintxe «Agur» azkeneko zenbakia iritxi da nere eskuetara. Eta lenengo orrian dagon argazkia eta azpiko idazlanak nere barrena erasan didate. Gure aurreko euskal idazle talde ori ikusi... eta orain «sasi idazle», «sasi euskeltzale» eta orrelakoen lana oroituaz nola ez samindu!

Idazle jator eta benetako euzkotar oien lan guztia, «iraultzaren» eta «euskeraren» izenean lurperatu nai duten guztien asmoak zeintzuk diran argi bai-daude! Baña askoek ez dituzte, itxuraz, asmo oiek, oraindik ere, ikusten eta or dabiltza berak esandako «berriketarekin» atzipetuta. Noiz esnatuko ote gera!, eta euskeltzale itxuraz, beren azpilana egiten ari diranak ezagutu, alde batera utzi, eta gure aurrekoak egin zuten lanari jarraitu!

Eguberri ta Urte-Berri on guztioi!

AMALE'K

Lezo

OROIGARRI

Iñoiz bada ta, Eguberri jai auetan, ume bezela sentitu eta ume bezela biurtzen gera, batez ere, adiñean aurrera sartu geranok. Nik uste dedanez, danak izango degu zerbait oroigarri, gure txiki denborako zerbait oroigarri, gure txiki denborako zerbait aipagarri.

Neretzako beintzat oso atsegin eta pozgarriak izandu ziran; baiñan bereziki urte batekoak. Ain zuzen, ainbeste amets egiten nuan «jaiotza» baten jabe egin nintzanekua. Nere anaiak Gazteiz'tik ekarria, Eguberri jai aiek igarotzeko etorri ta. Ura zan jaiotza, ura! Alakorik?, ez nere inguruan beintzat!

«Figura» asko, zein baiño zein ederkiago egiñak. Jesus aurra, Maria eta Jose, astoa eta, idia, artzai, ardi, aingeru, egaztiak, beste mota askotako jendea... Gizon bat, beroki baten bildurik, supekian jarrita; «Olentzero» izango zan noski...

Biaramonean, etxekoen laguntzakin, prestatu genduen kutxatilla batean gure jaiotza polit ura; abesti batzuk saiatu eta nere beste bi lagunekin erriari bira bat ematera. Lendabizi alkatearen etxera baimena eskatzera, eta gero etxez-etxe.

Ona emen orduan abestutako kantu aiek:

1.º *Jesus etorri, zaigu zerutikan lagun*
Goazen Belen'era ta adora dezagun.

2.º *Aingeru batek dio artzaiari esan*
Nola aurtxo eder bat jaio dan pobrezan.

3.º *Ederragorik ezin ditekela izan*
Zerbait eramateko gaixoak jan dezan.

4.º *Aska batean dago aur gaixoa otzak*
Su-egiteko Jose'k biltzen ditu txotxak.

5.º *Errukitu zaitezte kristauen biotzak*
Arren limosnatxo bat aur gaixoarentzat.

Eta eskupekoa artu ondoren:
Atez ate gabiltza limosnaren billa
eman diguzute ta orain esker milla.
Ikusi nai duenak aur eder umilla
Belen'era gurekin etorri dedilla.

Irakurle: gauzatxo bat esango dizut: Egun eta ume aietan, ni baiño aberats eta zoriontsuagorik, ezan izango... nere ustetan beintzat.

MIRENTXU

Izurtza

Ixurtza'ko «Gerediaga»tarren illobian emon jako lur santua, Atutxa ta Uria'tar Sabiñ'eri.

Abadiño'koa semez, Ixurtza Bitaño-Etxebarri'ko Karmele Gerediaga'gaz ezkondute egon da. Deustu'n bizi izan da.

Bilbo'ko Aurrezki Kutxa'n egin dau lana.

Euskaldun eta fededun jatorra. Lau seme-alabaren aita: Peru-Josetxu, Miren-Karmele, Jesus'en Miren-Terese ta Jontxu-Imanol.

Bere seme-alabai euskeraz berba egiten erakutsi dautsie. Baita arduraz eta gogoz erakutsi be.

Bere arimia Zeruan izan dedilla. Goian Bego.

GARBIÑE A. E.

Zeanuri

SAN ANDRES'AK

Erri onetako Asterri'n ospatuten dira. Zeziñak eta odolkiak jaten dira bai ederto. Urreko Atxaren magalpean dago Ermitaixo ori, auzotegi orretakoak guztiz polito ta ondo atonduta, oraingo erara.

Eguraldi euritsuan, bidean gora, ba-nindoian ba ni astitsu, oldozkor: laiño illun eta motzak noiz joango ete-diran gure artetik, eta bakezko Udaberria etorri!

Or-emen, baserri batzuk utsik ikusten dira. Orragoan kanbio aundiak arriz beterik, emen, Bilbo andi ortarako ur-potzua egiten diarduen tokirako. Ermita inguruan jentea urri. Amaika t'erdietan mezea ta itzaldia. Guztiz adi egon giñan, erabilli zituan gaiak onuragarriak eta jakingarriak baita poz emoilleak be izan ziralako danontzat.

IRAKURLEAK

Ba-doguz bai erri onetan AGUR'en irakurleak zorionez. Aurreko batean, plaza edo enparantza orri buruz zertxobait idatzi neban. Orain diñostee, zergaitik ez idatzi eleizpekoatzaz? Parkatu irakurle lagunok baiña ori lenengo ondo oldoztu egin bear, jaiolaren baten sartu ez nagien.

GAZTEEN BARRIAK

Pelota leiaketea dala-ta, aurten be Zeanuri atzenera eldu da au da, azken jokora edo semi-finaletara, Bizkai'ko Erriarteko txapelketan. Ta aurten be gurekin izan doguz Atxondo'ko pelotariak.

Lenengoa Zeanuri'n jokatu bear zan, baiña euria egin eban eta Zornotza'n jokatu bear. Gero, urrengo domekan Atxondo'ra joan gintzezan, Zeanuri'k 5-1 galdu eban, baiña umorerik ez gendun galdu orregaitik. Olango gauzak, umorea galtzeko baiño erriak ezagutu ta lagun barriak egiteko dira-ta.

Baiña zer jazoten jakee gure erriko agintarieri, dirua satsa lez euki ta Udaletxekoak pelota-tokiari legorrik ez ipinteko?

GORBEITARRA

Usansolo

GABON JAIAK

Jai ederrak benetan, batez be siñismendunentzat. Zorion beroenak opatzen dira adiskideen artean eta zelan esan be ez sendi barruan, maitasuna barrizten da, Belen'go mirarien bitartez.

Erriko kaleak erdi utsirik dagoz jai, onetan, urte barruan izan doguzan maitasun otz aldiak bete gura ba'geunkazan lez.

Eta jai kutun oneik eldu ba'dira, erbestean aldi luze bat eginda gero, zer? Gure biotzak orduan bai ganezka egiten dauala, gure sendi, adiskide ta erri guztiari maitasunik sakonena azaldu gurariz.

Eta onetara ezin dabenak egin? Gaixotokietan dagozanak, agureetxeetan euran zartzaroa apaltasunean ta ixiliean igaroten dabenak, zer? Lekaimen maitasuna daukiela, esango daustazue. Bai, ta benetan arein maitasuna daukie. Baten baiño geiago, las Hermanitas de los Pobres, deritxoen agure-etxera joaten izan garanean, an dagozan lekaimeen ardura ta urduritasuna ikusi doguz, an estalpetuta dagozan agure ta atsoen alde.

Baiña, eurak esaten daben lez. «Guk alegin guztiak egiten doguz gixajo orrein zartzaroa poz ta alaitasunean igaro daiten, baiña erriaren laguntasuna bear dogu, gurari ori guztiz betetzeko. Ez diruz ta sariz bakarrik (naita oneik guztiz bearrezkoak izan, iñoren laguntasunen menpean gagozen ezkero) baita, erriak ekarri leikezan abesti, dantza, jolas aldi; itz baten esanda, erriak ekarri leikean maitasunagaz.

Labea ta Usansolo'ko talde batek, egi oneik euran biotzeko sustraietaraiño elduta daukiezan ezkero, igaro dan Lotazillen 26'an, bakotxak bere zeregin ta norberekeria alde batera itxiaz, Atxuri'ko aitita-amonanera joan ziran, euren poza ta alaitasuna azaltzen. Iñoiz emongo ete dautsagu naiko eskerrik, gure Amaia kutunari, bere nekebako ausposoiñu aldiagaitik?

Beti izan ba'da bera, arlo aundiena artu dauana gure agertaldietan etxe artakoa, 26'an, azken bakoa izan zan. Beste mailla baten, baiña gogo aundienagaz, Begoña bere kitarragaz, Yurrebaso aiztak, Julen, ta nik ez dakit zenbat geiago, abeslari ta dantzari izan giñan. Bitarte baten, Jokin ta Noemi, Julen ta Pilin semealabak, eta Unai Ernesto ta Edurne'n semeak, ainbat gozoki sabaldu ebazan, gure amonaren artean.

Jabier'ek esan eustan lez, zelako poza artzen dauan norberak bere, gure zartxoaren aurpegi argi ta alaiak ikusiaz, gure dantza ta abestiak ikusi ta entzuterakoan.

Urrengo arte aitita-amonak.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Basauri

MENDI-ZALEAN BATZARRA

Igaro barri dogun Lotazillaren 12'gnean, Baskonia mendigoizale Bazkuna'koak, ospatu eben urteroko batzarra, urte barruan izan dabezan eginkizun, arazo ta gora-beren barri, ta asi dogun urterako eralduta daukezan gaien barri emoteko bazkideai; ara emen erabagi ta astindu ziran arazorik urtenen batzuk:

Batzar onetan erabilli zan gairik garrantzitsuen bata amaitu gaiñean dauken batzartoki barriatzazkoa izan zan, nai-ta bertan egin zan be batzar au, orain amaitu barik daukagu-ta, bazkide guztien laguntzaz amaitu bear da, norberakeri guztiak alde batera itxita, ta ez oraingo bazkidean onerako bakarrik, urrengo aldietan izango diranen ongarri be izan leitekelako, bertan, mendizaletasunean eta jakintzan be ezi leitekelako kiroldar gaztedia.

Ori lortuteko, baiña, txindia bear zala esan zan, ta berau lortuteko Baskunak Gorbea'n daben Aterpe gozatzean ordaintzen dan saria, jasotea erabagi zan. Baita batzordean be leengoak jarraitzea erabagi zan, gazte barri batzuk sartuaz, errian mendi-zaletasuna geituten alegindu daitezan.

Batzar ontan ikusi genduanez, basauritar mendi-zeleen eginkizunak, txangoak eta ibilketak onak eta garrantzitsuak izan dira igarotako urte barruen. Ea-babaskoniatarrak, Euskalerri'ko okullu ta ikusgarri dauken mendi bat ez daitela zuok ezagutu barik geratu, danon onerako.

ZERBAIT DANETIK

Aldenduaz doiaz erriko basetxe txukun, bedarlanda ta etxe txiki guztiak, «lengo» guztia, erri «barri» baten aldatuteko osorik... Etxegintza aurrenengoak, etxetantai, raskacieloak, akeitegiak, jaiaretoak, edatetxe, ta ardangela geiegi, danon kalterako. Kirola egiteko dirauskue; non baiña? Ez ba'daukagu errian zelai orlegirik, landarik, igeritegirik ez pelota-tokirik kirola egiteko!

Jakintzarako toki egokiak, bear doguz, bertan, azkatasun guztiaz, kiroldar, erriketa, uzkurtsa ta ertitzazko itzaldiak emoteko, ixeleko muga barik.

Bearrekoa doguz euskal ikastolak, ia aldenduaz joaku-ta Basauri'n euskerea, geure erruz. Eta ori jazotea nai ez badogu zintzo ta kementsu jokatu bear dogu nortasun pizka bat daukogun basauritar guztiok.

Baita bearrekoa dogu, iñon bear ba'da! erriidaztetegia, ez da ba Basauri lako erri bat; berrogei ta bost milla bizitale izan eta idaztitegi on bat ez aurkitzea, erriaren jakintzarako be. Egia da, Jakintza-Etxea egiteko asmua dago, ta egingo da baiña dabenak jakintzazko bazkunai edo taldeai euren laguntza eskintzea bear.

Erri'ko jaietarako txindi mordotza ikaragarriak ixentatzen dira, taldeari ta abar bultzatuaz giroa pizkat sortu daien, zergaitik ez orretariko txindi batzuk eralgi ez, talde orrein artean kiroltzaz eta jakintzaz pizkat jabetu daitezan taldekide orreik eta euren inguruan bilduten diran gazteak?

Erriko basetxeen jabeak basetxe orreik saldu edo bertan bera itxi ta erribarrura doiaz edo datorz, basetxe ortan ezin dabelako biziera egokirik aurkitu ta erreztasun gitxi ta zama asko bai, ori batetik, eta bestetik «San Miguel» aldekoan lez «Echevarria, S. A.»'n landolak jaurtitzen daben ke loi ta naskagarrian bitartez ezin dabelako, ez garbi ez argi, gozatu alderdi ortan. Tamalgarria benetan, guretzat, basetxe orreik ustutzea, eurok izan diralako beti euskera ta eusko nortasunaren zstalpeak.

KOLDO

Galdakano

ERLETXETA'N

Uda-azkenero igande arratsalde eguzkitsu baten ordu bi edo geyago Ganguren'go mendia zear igaro nituan nere emazteaz, eta Erletxeta'ra txarto esanda, jatsi giñan, antziñako Gumuzio'ra, bertako edatetxe bietatik baten akeit-esne edo garagardo pizkat edaten ta etxe bi orreik ertsita aurkitzen ei-dira aspaldiz be. Eta, ori zala bide, ez egoan lenago auzune ortan izaten zan notintzarik ez alaitasunik: utsik dago, ta gasolina artuten geratuten dan berebillen bateko notiñak baiño ez dira ikusten.

Orretan giñala bertako adizkide bi agertu ziran (gitxi edo asko bertako geyenak dodaz adizkide neure gaztaroan, urte askoan, bertan bizia naizelako), ta asi giñan izketan adizkiderasunik anditenean, jakiña:

—Zergaitik eta noztik ona aurkitzen dira edatetxe oneik sarratua?

—Aspaldiz aurkitzen dira igande arratsaldeetan sarratuta, zergaitik? aberastu diralako bear bada.

—Orduan, zer egiten dozue, edo non egoten zaree gizonezkook igande arratsaldeetan?

—Sarritan, etxe inguruan, eta beste batzuetan Larrabetzu'n, Zornontza'n eta abar. Eta, gaztedia, geyen bat Zornotza'ra, erriko enperantzean be jolasik ez dagolako.

—Lenago, gure gaztaroan, gaztedi guztia erriko enperantza'ra joaten giñan, eta ezkonduak edo pizkat adiñekoak, berton bolaketan edo musean ederto baten jolastuten ziran; zergaitik ez zaree auzuneko zaar eta gazte alkartuten eta danon artean toki egoki bat gertatu, bertan alkarregaz jolastuaz zerbait egoki ikasi ta egiteko Erriaren alde?

—Orretariko zerbait baiño geyago be egiñak, gara zuk jakin daizun, erletxetarrok: Eleiza barriztutea amaitu zanean, onen aldamenean dagon abade-etxea, auzokide guztion txindiz eta laguntzaz egin zan, eta etxe orren goiko bizi-lekuan areto eder bat gertatu zan, zabala bera, ederto gertatu be! bere sal-mai, alki, idaztegi, irrati, urrutikuskin eta guzti, bertan auzokide guztiok bildu ta batez bere gure gaztediek euzko abesti, dantza ta gaiñetiko euzko gayak pizkat ikasteko asmu zintzoaz. Eta, ez egin bakarrik, giro ederra be susmatze genduan bertan, baiña, egun batetik bestera sarratu zan, eta or dago aspaldiz orretara, gure gaztedi guztia zakabanakatuta aurkitzen dan bitartean, sarritan bear ez diran tokietan.

—Ikusten danez zeuok, auzokideok zaree errudun areto eder ori sarratua aurkitzeaz.

—Zati bat bai, gure errua be ba'da, baiña, ez guztia, beste nonor gu baiño errudunago dalako, auzokideak eta alan be gaztedia izutu geyago egin dabelako alkartu baiño.

—Nik ez dakit zein zareen errudunago, baiña, ikusten da danok alkartu bearrean zagozala, zuen areto eder orretan auzune onen eta Erriaren ongarrirako eusko-giro sakon bat sortuaz.

ERIOTZAK

Asko izan dira azken aldian gurartetik Guztia al-dabenak eroan daituzanak, ta ara emen orretariko batzuen izenak:

Lotazilla'n 12'gn, Olabarrieta'tar Matai, irurogei ta amairu urtedun zala il zan. Euskaltzale ona izanik, Matai adizkidea, illetak, jakiña! euskeraz egin eutsoezan erriko txadon nagusian, eta illetak euskeraz asi ziranaz batera aldi ontan zerbait dan gizon bat ikusi genduan mando-euliak zirikatuta lez eleizatik urtetan, baten baiño geyagotan euskerari dautson gorrotua erakutsiten emonaz, naita euskalduna izan bera. Galdakano'ko semea ez ba'litz...

MENDIGOIZALE BATZARRA

Urteroko batzarrak egiten asiak dira mendigoizale bazkunak, urte guztietan lez urte barruan egindako eginkizunen barri emon bazkideai ta sartu garen urterako dabezan asmakizunak edo eretxiak azalduteko. Orretarako edo, bertoko Ganguren mendi-zale taldeak be ill onen, Urtarril onen 16'gnerako iragarri dau urteroko batzar ori, eberdateko amaiketarako. Eta, orretara izanik, bertan bildu bearko gara erriko mendigoizale guztiok.

BASA-JAUN



Euskaldun bat Suezia'n

GAZTEAK INDARRA DARIO...

Alderdi guztietan entzuten degu Suezia'ko gaztedia ustelduta dagola. Bertara joanta berdin aditu bear ere; «emengo gaztedia jota dago». Uste dut gazte batzuengatik ezin dugula gaztedi osoa zikindu. Gaztediari ere bere neurria artu bear zaio.

Nere iritsiz, ango gaztedia, azkarra, ernea, ederra, egokia iduritzen zait. Ez dago etzanta, zutik baizik. Lanean dabil geiena. Berak darabilzkite ango lanaren giroak. Latokietan, dendetan, laboratorioetan tente asko azaldu zaigu. Ango gaztedia ez dago lo. Olinpiadetako jolasetan, orain arte Frantzia'k baiño medalla geiago atera dituzte. Jakintza geienetan ere oso aurrera dijoaz. Erriaren indarra gazteen eskuetan dago. Ez degu makurtuta ikusi ango gaztedia; egualdi ona zala, zuzen eusten zituzten beren bela ontziak itxaso gaiñean. Itxuraz beinpen, bateri ala zion: «Pascal-idazlearen lanak irakurtzen ari naiz. Ez dut ulertzen zergatik gizon au Frantzia'n ain gora altxatua daukaten. Neretzat burutik gaxodun bat degu, betiko bizitza ta anima ta abar aipatzen bai ditu. Gizon argi bat ezin leike orrela mintzatu. Ori dana paranoia da».

Siñismen aldetik arront oztuta daude gazteak. Beren siñismen egitazkoa, gizona ta teknika da.

Droga degu, gizarte oneri agertu zaion egitazko peligro ikaragarria. Esaten dutenez, mailla erdiko ikastetxetan, iru ikasletatik bat drogatzen da. 1950 urtetik 1970 urtera ikaragarri aberastu da gizarte au ta gaur danerako errextasun aundiak dauzkate. Bakarrik drogak, arront aulduta uzten ditu bere maitale edo zaleak. Oiek, bizitzeko kemena ere galtzen dute. Aurrerapenaren billa ere



«Aida» argazkiak

gaztedi ederragoa ta azkarragoa ezin da aukeratu.

Toki guztietan bezela, galduak ere ba daude. Stokolmo'ko bizpairu tokietan biltzen dira. Zumardi ta enparantza ezagunenetan ikusten ditugu geienak etzanda, joanak bezela, ezertarako ez direla. Aiek ikusita, ezin leike esan Suezia'ko gaztedi osoa alakoxea dala.

Ezin deguna aztu da, Suezia'n gauza guztientzat askatasun aundia dagola. Galdu oiek dira, gizarteak askatasunari eskeñi bear dizkion ordaiñak. Askatasun ortan bizitzeko ta aurrera ateratzeko oso azkarra, alderdi guztietara, izan bearra dago. Askatasun aundiko giro ortan, gizaseme asko oso aurrera ateratzen dira, besteak ez dute balio. Bakoitzak bere kontuak atera bear nai ta naiez.

Dana dala, gazteentzat giro zailla dagola Suezia'n, esan dezakegu. Alde batetik, aberastasuna ta gauzen ugaritasuna ikaragarria ikusten da errialde ortan. Oso aurreratuak daude ta danetik gauzik onenak arkitzen dira. Ugaritasunak ez du esan nai errez daudela. Ondo bizitzeko erosotasunak asko kostatzen dira. Aurrerapenak eskuratzeko dirua bear eta ortarako lana egin bearra. Gauzak ikusteakin bakarrik ez dira eskuratzen.

Beste aldetik, Estaduak gaxtetxoei irakasten die ikastetxetan, zer egin bear duten neska mutillak alkarrekin atsegin izateko, ezeren arrixkurik gabe. Gastetxoak aurretik danetik baldin ba'dakite, jakiña dago danetik probatzen asiko direla. Irakasten zaizkien gaiak ez dira bakarrik jakiteko, egiteko baizik. Baiñan gorputzak bere neurriak ditu. Ase ezkero, gero atsedena artu bearra. Ikusten danez, bide ortatik asita, itxuraz gizona asko aultzen da eta usteltzen ta txarten asi ere bai. Baiñan esan degun bezela gorputzak bere neurriak ditu.


Batzuek diote, adibidez, estudianten artean ikaragarrizko ustelkeria dagola ta gazteak oso jota daudela. Ez dekitela nundik nora ibilli. Askatasun osoan bizitzea danetik probatu gabe zailla baita. Atzerrira dijoaztenentzat, ibilli aldi oiek antolatzen dituzten etxeak, aolkoak idatzita ematerakoan, gaztei esaten diete «antikonzetiboak» ez aztutzeko.

Siñismen aldetik, bertan diotenez, gazte geienak ez daukatela esan dezakegu. Gaztedia siñismen gabekoa dala diote egunkariak egindako enkestak. Siñismenaren bearrik ere ez dute nabaitzen. Askori entzuten zaie, «siñismena etxait ajolik». Elizaren esanari ez diote entzuten ere. Errealidadeari begiratzen diote ta esaten dute: «Elizak zertan laguntzen digu? Zertarako bear dugu? Gaurko buruausteak ez ditu konpontzen, orduan ez degu bearrik». Bide ontatik oso urrutira joanak daude. Gazte batek frantses ez dute ibilli nai. Beti etzanda daude. Aurten bertan «Hippy» billera bat egin dute eta amaika milla bildu dira, drogaren usaia dario. Batzuek diotenez, erdi mailleko soziedade edo gizarteko gazten artean nabaitzen omen da atzeraka ori.

Norenak dira erruak? Sozialista agintariak, elburu bezela bizi egoera berdintzea izan dute ta ekonomi mailla igotzea, baiñan gizonaren barne muiñeko aberastasunak etzaizkie ajolik. Ortik sortu omen da gaurko utsune aundi ori. Langille ta beartsuen alde lana egiten ari zala, bete-bear bateri erantzuna ematen zion. Gaur ia danak ase dirala, gizonaren barrengo aberastasunei ez diete eman balio berdiña.

Ze etorkizun izango dute gazteak biarko egunean? Orain arte teknika sozial, eziketa aurrerapenaren aldetik oso ondo zijoazen, itxurak ala dio. Bizitzaren buru-austeak errextu nai izan dituzte. Uste dugu, oso azkarrak diralako, aurrera jarraituko dutela. Baiñan errexkeriak droga artu arte ez ditu lasaitzen gazteak. Drogak berriz oso aulduta, motelduta, urtuta, jota uzten ditu. Nola atera leize ortik? Suezia'ko paradisoan laiñoak ageri. Nere ustez, orain arte ain azkarrak izan diranak, jakingo dute une txar ontatik irtetzen. Askatasuna maite dute, baiñan bere ondorengoak dakarzki. Nere ustez indar berrituko dira.

LATXAGA



ANDEREIÑOAK, EMAKUME ON OIEK!-II

Satorra lur azpian dabil ongien. Eta itsu-mutsu egunaren argian. Geienik bere lana lur azpian egiteko lana da. Baiñan, ziriñak belea adierazten digun lez, bere ibilleraren berri lur azalean nabari uzten du. Ala ere, oraindik nabarmenago berezitzen da argitara lan egin nai duanean. Ez bada arritu azpi-aztarrika maite izatea...

Euskal satorraren lana, arrastoak beenik, amaika orritxo eta liburuetan argitan ikasi ditugu. Alkarrekin itzalpean bizitzera beartu gaituztenez ba-dakigu ere zerbait beren ezkutu asmoaz. Maitasun aske bat ipiñi, aragikeria onartu eta gaztedia aberetu, eta onekin ain sakratua zaigun euskal sendia orpotik il. Jentillen leitza-zuloetara, ezjakintasunera biurtu... jakintzaren izenean.

Danok polbora, danok sukorrak izanik poxpoloa jartzen digute ao-zuloan. Orretara dijoaz euren urratsak. Bost ajola zaiete Errusi batean eta Txina batean onelako saioak porrot egin dutela, bidez aldatu direla jakitea. Ajolik ez, orain erri oiek berak moral gauzetan iñor baiño estuagoak baldin ba'dira: Gu, euskal iraultzailleok aurreratuagoak bai-gera!

Moral etenketa onetan emakume guztiak berenganatu nai lituzteke, baiñan euren emazte-alabak kristalezko kutxan ongi gordeta gero. «Ez dago erria preparatua», beretarrak iñori emateko. Baiñan besterenak... zuek ere bai, andereiñoak.

Baiñan zuengan bereziago dan asmo bat dute. Zuek zerate guraso eta aurtxoen bitartekoak. Zuek gordetzen dituzute erri baten izakeraren jarraipen lokarriak. Zuek ezi bear dituzute guk azitzen ditugun aurtxoak. Guk, etxean siñismena erakusten dietean. Eta arimarentzat «bizitzan postura» ori ezagun aràzten saiatzen gera, soiñaren ibiltzeko postura erakusten diegun bezela. Zuek, andereiñoak izan bear zerate, batez ere arimarentzat, gure urrengo irakasleak. Ongi bai-dakizute gaurko industrializatzeak, gaurko emakumearen lantegietan jardun bearrak zenbait sendiei ez diela ematen aski denbora kristau eziketa emateko. Eta industrializatzea orrela dijoalarik, gero eta gutxiago izango beta.

Orregatik eta orretarako zerate ordainduak, gurasoen eziketaren laguntzailleak izan zaitezte. Gure emazte-alaben on izateak damaizuten bitartekotasun orrek ba-du «sentidorik». Apaiz eta frailleen sermoiak «sentido» gutxiago due «aurrei siñismena ikastolan ez zaio erakutsi bear», esatean, gero urteetan sartu geranoi pulpitutik siñismena erakusten jarduten badue... ikastola garaietan etxekoak naikoa erakutsi ba-digute.

—Iraultza gure aurretan datza. Emendik asi bear diagu kalera irtetzen geranean. Ikastoletan sar, andereiñoak gureganatu...

Aureola apur batez datorken gazte pollita jainko-txiki bezela artu zenezateke. Baiñan erri baten idealak aundiagoak dira une batean egi aundi bat bezela artzeko. Ideal oiek ongi aztertu bear dira, lenen eusko familiari zer dakarkion pentsaturik, eta gero erri osoari zer lekarkioken, erri baten osaketa familiaren zintzotasunean finkatzen ba'da, beñepein.

Lengoan genion bezela, euskera guztiona da. Baita siñisgabeena ere. Gu ikastolen etsai gerala, fatxistak gerala esaten dizuten gazte oiei, ezaiezue berak gogozko dituzten ikastolak sortzeko eskubidea ez diegula ukatzen. Baiñan, arren, ez ditezela satorren antzera guk sortutakoetan sar eta lur-aztarrikan jardun, oiñarri aulak goitik-beera erori bai-ditezke. Gurasoak ez ditugu semeak izan, ok kontrolaturik pozaz bizi gaitezen. Gure naia ez da besterik, poza ere, kristautasunean, euskalzaletasunean eta gizatasunean gu baiño geiago izan ditezela baizik. Au irakasteko jaio ziran ikastolak. Siñisgabeak bestelakoak nai ba'dituzte, lur azpiko illunpetik irten eta arpegiz-arpegi itzegin dezatela, eta batezere, joka dezatela. Arkituko bai-dituzte beren gogozko andereiñoak ikastol bereak sortzean.

Sortu genituan gure ikastolak gure amak izan ziranen siñiste ta izkuntzaz nai genituzke. Eta emen zuek izan zaiteztela ikastol andereiñoak, zuek, bizia eman zigutenen emakume on oien jarraitzaille zintzoak. Laga baztarrean izan zituzten okerrak eta utsegiteak. Eldu eman diguten onari, gizaldiak obeagotzen joan gaitezen. Gurasoak etxean, baiñan baita zuek ere ikastoletan, erakutsi dezaiegun gure aurtxoei. «Siñismena, bizitza bat dala, postura bat dala» jakin dezaten, erakutsirik lenengo siñismen ori zer dan, zertan oiñarritzen dan. Iñor ez bait-da jakitun jaiotzen. Tentelak bakarrik ez dakite bere «postura» zertan datzan. Oraingo ikastolak gure umeak diranez maite ditugu. Eta gurasotasun eskubideaz, euren obe bearrez, bearrezko deritzaigulako mintzatzen gera orren gogorki. Barkatu.

UXOLA

O.N.U.'ko Naspilketak

Urteak dira, Ginebra'ko Nazio Batuak ezereztu, ta sakabanatu zirala. Orduko erruak, aleman ta italiarrak zitusten. Obeto esateko, nazistak eta faszistak. Bi jauntxu arro aiek, joan ziran mundu ontatik. Geroz, Europa'ko guda ondoren, sortu zuten dalako O. N. U. ori. Usten gendun aurrerantzean, gudarik ez genduela, ikusiko. Bai, egia. Europa'n gudarik ez degu nabaitu. Bai ordea beste aldeetan. Lenen KOREA, bigarren VIETNAM, irugarren ISRAEL-EGIPTO, ta BIAFRA ta... orain INDIA ta PAKISTAN berriz.

ONU'koak ezin dute pakerik lortu. Or dabiltz burrukan... Pentsa, egun auetan telebizan ikusteraiño nik, gizonak alkar bultzaka. Zergatik!

Bengala'ko guda ortan, rusoak India'ren alde daude. Txinoak ostera, Pakistan'en alde. Rusoak ortan yayuak dira, gauzak naspiltzen. Arroputz beti indarraren indarrez ortzak beste guzieri erakutsiaz.

Orain ordea, rusoari ONU'n, gauzak ez zaizkiote sortu, berak orain artean ezagutu ta egin dituzten antzera: UNGRIA'n egindako odol ixurtzeak, gero Txekoeslobakia'ko atzaparradak, ta betiko jauntxokerak bi Alemani'etan.

Orain txinoak sartu dira ONU'n, ta auek ere asiak dira ortzak erakusten! Inperialistak dirala, deadar egin zion lengo batean rusoari. A ze nolako egia! Besterik ez bai dira rusoak! Indarraren indarrez, ta arrokeri orrekin, nai dutena egiñaz ONU'n.

Oiek orrela dirala ere, nere iritziz, indiarrak arrazoi dute. Bengala'koak beren borondatea ederki agertu zuten azkenengo botazioetan. Bengalatarrak askatasuna nai dute, ta Pakistan'ek, indarrez aien gogoak ezereztuaz, bazter guzietan erail zituzten, dena erre ta kiskali arte. Es da txantxetako jokoa, bederatzi milloi biztanleren igeska India'ra!...

Guda bukatu nai ba'dute, ez da ain zailla. Eman askatcsuna Bengala'ri ta kito. Zertarako dira gizasemeen eskubideak?

Rusoak, esan geinke, Asia'n jaun eta jabe dirala, aspaldi ostutako lurraldeak berekin dituztelako. Txinoeri lurrak kendu zizkioten. Kendu zizkioten japoneseri. Mongolia ere artu zuten, ta Europa'n ere, zer esanik ez; eurak arro beti.

Amerikanoak; A ze nolako parreak egingo dituzten orain! Ikusirik, bi otso oien burrukak! Orain arte amerikanoari esaten zioten inperialistak zirala... orain rusoak ere, berdin dirala ikusten degu, beintzat, txinoak argi ta garbi esan diote. Ez dute arrazoiren paltik. Besterik bai al dira ba?... Komunismoaren tentakuloak alde guzitan zabalduak dituztenez rusoak, orain, ONU'ko burruketan, gaiñontzekoak algara ederrak egiten dituzte.

Or daude ere ingelesak. Auek maltzur ederrak beti. Mundu guzian jaun ta jabe egon ondoren, gaur egunean txepel ta burua jausita. Apal ta, gero ta lur gutxiokin. Ingelesak, ez daukate sasoi artako, Napoleon denporako, arrotasunik. Orduko aberaztasunak, gaur, urtuak daude. Ingalaterra'ko kutxetan... Ala ere, yayuak dira oiek. Beren dirua beti zaituaz ongi, ta librak kilcen balioan...

Zer nai dute orain txinoak? Zer naiko dute, antziñan rusoak kendu zizkioten lurrak lortu. Baiñon, gu ez gera ez baten alde ta, bestena gutxiago. Askatasunik ez dagon laterrietan, ez dago ezer egiterik. Bakoitzaren borondateak ausi ta ixildu azitzen dituztelako. Bi laterri aundi oiek «idea» berdiñekoak izanik, naiz ta burrukan ibilli, biak berdintsu dira: Komunistak, jantzi desberdiñakin. Besterik ez.

Izan degu guk zer ikusi aspaldiko urteetan, nola naziztekin, edo faszistekin, edo'ta, komunistekin. Oiek pizti bildurgarriak dira mundu guzian, oien idearik nai ez degunontzat. Naiago ditugu besteko libertadeak.

Ze azken izango du ONU orrek? Ez dakit. Gauzak denporaz ikusten dira.

E. OZKIN

AGVR

III URTEA
29 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1972 - URTARRILLAK - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

OITURAK

Zer gara?

Gizonak, berez eta bakoitzak, izadiko guna, sagarra, bera dala ziñesten dau. Ta egitan, berezkoa izan bear ziñeste ori.

Bera ez ba'litz, ezin izan izadia be; bera ez dala ez da ezer iñon.

Izan izanda be, inguruko guztia berak ikusi, entzun, ikutu bear, edo ez da ezer besterik.

Ta nabaitu al izango daben inguru orrek eraginda, izan zanaren, danaren, ta izango danaren guna, bera ba'da be, neu au ba'naiz be, gizonak beste zerbaiten jarri dau, izadiko gun izate ori. Nor baten ume, zein baten lorratz ta zer baten eragiña dala jakin dau, au da erri baten zatia.

Ta zati dala nabaitzetik, bere izadiko gun izate ori, erri oso baten izanean, izenean eta iraun bearrean jarri dau, erri orren bizigaietan, bere erriarenetan. Inguruak daragio eragin, ta bere ingurua osotzen dauan erriak nabaitzen daben bidetik ulertuko dau izadia.

Erri, anaidi baten izena da, ta izana, ta onen senidegaiak, odola, izkuntzea ta oiturak. Erri bat ilgo ba'da, edo erailgo ba'dogu, iru euskarri oneik ezereztu bear, ta beste batzuk ezarri; gizona ezin legikegu ustu-ta.

Senidegaiok, onak, obeak, txarrak, epelak edo makurrak izango dira; baiña bakoitzak bereak maite, bere erriaren izana maite dauan artean eta neurrian.

Oituretzaz diardugu gaur emen, ta euren artean JAIETZAZ. Txarrak ba' lira, obetu; onak ba'dira indartu; epelak dirala... biztu. Ez daiegun utsik egin iñoiz; ezta, okerragoa dana, besteeri uts-eragin.

Erriaren jaiak guztionak dira, ta miñez ta lorrez edo negarrez nagola be, ezin erriari bere jairik ukatu, biziko ba'da; ta gitxiago bereak ez diranak ezarri, erailgarri.

Jaiak; iñoiz dantzak, urrengo jolasak, edo eresiak eta olerkiak, baita jan-edanak be; obeak, onak eta txarrak... gureak. Onenak baiña, gogojasogarriak, otoitzak. Gaur, jai aundietako eleizkizunak baztertu nai doguz, ez dautsegu jaramonik egiten. Otoitza ez da jaia! Ala ta be gogoak egarri ta ezin asetuta dabiltza... erreztasunaren itxaso zabalean, ur gazian.

Sanantonetako abere bedekaintzeak, Kandelarioko il-zorian dagozanentzako lagungarriak, Santagedaren beartsuentzako laguntza, Sanblasen lokarriak eta opillak, Sanjuan suak, ta Gaztaiñerre, Iñauteri, Olentzaro... Idi-demak, arraunlariak, pelotariak... bertsolariak, izan ba'dira ta ez ba'dira, Erri bat izan zan, ta beste bat, beste erabateko zerbaitek artu dau bere tokia. G. B.

Ta ara nundik, azkenengo aldiz ba'da be, eleizkizunetara joan bearko gara, bein, gure erriaren illetetara, batzu-batzuk toka-disko ta guzti.

AGVR



Biar da ba Deun Agate!

ERNE IBILLI

Bai, erne ibilli bearra dagola esan bearrian arkitzen gera. Bazterretan naspill asko ta azpikeri geyegi dabillelako ze elbururen atzetik doazen aitortu gabe.

Beren asmoak aurrera eramateko, asmatzen dituzte diranak eta ez diranak, nola edo ala, ibaiko urak beren errotara eramateko. Ortarako jokabide guziyak erabiltzen dituzte, ankapetuz beiñ eta berriro, beren gogozko ez diranak.

ELIZAK ondo aski erakutsita dauzka, ludi ontako gora-beratan, beti gogoan euki bear ditugula lau oiñarri abek: «Egiya, maitasuna, zuzentasuna ta askatasuna». Naspillzaleak ordea, baztertu egiten dituzte oiñarri jator eta bikaiñ oyek, eta beren lekuan, beste oiñarriabek erabiltzen dituzte: «Gezurra, gorrotoa, zuzengabekeria ta lotutasuna». Lotutasuna batasunaren izenean, besteai, beren iritzi berexiyai uko azi egiñaz, aben iritzietara makurtuz.

Azaletik benik, ikus ditzagun maltzurkerizko ekintz batzuek, ala, obeto antz emango diogu-ta jokabide okerrai:

1.—*Arantzazu'ko gau-ibillaldietara boikot giroa zabaltzen ibilli ziran sasoi batean, egitazko asmuak agertu gabe, milla aitzaki asmatuz.*

2.—*Era berean zenbait erritan, garizumako gogo-jardunai boikot egiten eliz-gizon baten jokabidea aitzaki artu-ta.*

3.—*Berdiñ-berdiñ ainbeste ta ainbeste euskal boikot, berak antolatutakuak ez diranean. Baiñan berak antolatutako jayak diranian berriz, danai joan-arazi, naiz-ta pagano azalketa bat izan, maitakeri lizunak goratuz eta Eliza parragarri uzten sayatu...*

4.—*Ikastoletan, kristau kutsua kentzen egiñalak egiten sayatu, gurasoen eskubide guzien gaindik.*

5.—*Iruña'ko apaiztegian andereiño talde batek billera bat egiñ nai, ta Gobernadoriak galerazi ondoren, apaizak joan zirala Gobernadorengana salatzera, esan eta esan ibilliak dira, ondo jakiñ arren gezur galant bat zabaltzen ari zirala.*

6.—*Santa Ageda'ren oitura jatorrai ere boikot. Aitzaki artuaz ortarako, alegia espetxeetan daudela batzuek, orrengatik ez gaudela jayetarako... Ain xuxen, Santa Ageda'ren aurkako giroa zabaldu ondoren, ba-zetorren andik egun gutxi barru, Tolosa'ko iñauteri-jayak. Ta zer uste dezute ikusi genula Tolosa'ko jai ayetan? Ba antxen ikusi genitun bertako kale ta bazterretan, Santa Ageda'ko boikot-zaleak, zurrut emen eta zurrut an, jo ta ke dantzan geratu gabe; itz batean leporaiño sartuta, gau t'egun bertan goizaldera arte... Baiñan nola leike olako joko zikiñetan ibilli? Alde batetik boikot euskal jayai ta gure oitura zarrai; boikot baita ere kristau kutsuko joerai, eta beste aldetik berriz, berak, euskal eta kristau kutsu gabeko jai aldi guzietan, antxen batere utsik egiñ gabe leporaiño sartu-ta. Ederra kontua...*

7.—*Larraitz'ko akelarre'n gertatua danok dakigu. Ango pagano giroa, ango aragikerizko nasi-nai ta supixteak ta Eliza'ren aurkako jardunak...*

Ta orrela jarraituko genuke luzaro, talde baten azpikeriak nabarmen agertzen.

Orain GABONAK ditugunez, asiyak dira joan zan urtean bezela, «JAYOTZAI» ta ERREGE EGUNAI boikot egiñ nayian. Aitzaki asko asmatuz, ari dira esaten «JAYOTZAN» ordez «OLENTZEROK» atera bear dirala orrela pagano giroa zabaltzeko jai eder oyei kristau kutsua kentzearren... Nunbait, karramorruan antzera egitea nai dute oyek, euskaldunak antziñan bezela paganismuan murgildu gaitezen.

ERREGE EGUNA'ren aurka ere asiyak dira. Egun orren sarreran egiñ oidan zaldizko ibillaldi oitura ederra kendu nairik dabiltz. Kristau kutsua bai-du... Ta egun ortako jostaillu banatzea ere ez dute nai, ta ortarako aitzaki polita asmatu ere bai: alegia, egun ortan jasotako jostailluak, Ikastolako oporraldietako bukaeran artzen dituztela, ta berakiñ jostatzeko astirik gabe gelditzen dirala..., bereala berriro Ikastolara joan bear bai-dute... Langintza ortan dabiltzanai, gutxi ajola umeen jostaillu ta goraberak, baiñan nola aitzaki polita dan, beren asmoak aurrera eramateko, Gabon egunera nai dute aldatu jostaillu banaketa ori, ta gaiñera Olentzero'k ekarriko balitu bezela (Santa Claus eta San Nikolas-erik ez...) Ta gaiñera ba-dakigu, umeen jostaillu geyenak, ogeitalau ordu barru puskatu ta ondatuak izaten dirala, ez bai dute geyo irauten; aitzaki orrekin ordea egun orreri kristau kutsua kentzea besterik ez dute nai, argi ta garbi dagon bezela.

AZURMENDI'TAR YOKIÑ'EK

SENDIA

ZAPALTZAILLE ALA

ASKATZAILLE?

Ez dira gaurkoak eta ez gureak bakarrik sendi edo famili barruko arazoak, baiña erbestean aspaldian ebillen ekaitza gure lurraldera be eldu da. Euskalerrian, oraiñarte, indar aundia izan dau sendiak, indar ongarria esango neuke nik, beste batzuk beste era batera azaldu arren.

Denpora asko ez dala, Bilbo'ko ziñe-gela baten, abade zanak edo izandako batek zera esan ei-eban: Sendia gizarte burgesaren oiñarria dala ta gurasoak, oraiñarte, euren seme-alaben zapaltzaille. Andereiño batek ederto eratzun ei-eutsan, esanak esanda gaiñera! Nun, noiz eta nork be, azaldu legikegu, iñork jakin nai ba'dau.

Olakoen jarraitzailleak, jakiña, iraultzako bidean lenengo apurtu nai dabena, sendia da; sendia apurtzeko, ezkontzea alperriko lokarria dala erakutsi; seksoak gizonari ta emakumeari eskatzen dautson naia asetzeko, naiko ei-dira arzuloak eta gau-aroan, landetako bedartza biguna. Beste gauza guztiak «prejuizio burgesak».

Biderik errezena lez agertzen da au gaztediaren aurrean, baiña ez gaztedi eginkorrarentzat; eurak konturatu barik konsumogizarteari jokoa egiten dautsen gazteentzat baiño.

Illa batzuk lenago, orixe-berori esaten eban, L'Humanité izparringian, sikologo sozialista batek, baiña gure arteko «aurreratu» batzuk, illunabarrean itxartzen dira... Ez jaunak, Euskalerrian ez da kaltegarria izan sendia. Etxebarruan gorde al-izan dogu sendoen daukagun errizaletasun apurra; sendi artean gure oitura berezienganako maitasuna; azkenez, guraso ta seme-alaben artean gorde al-izan da gure izkuntzea. Zenbat urte igaro dira ikastola, aldizkari edo zabalkunde barik? Nortzuk eutsi dautse euskereari, kemen apur bat izan daben gurasoak izan ezik?

Baiña, gaur sendiaren aurka agertzen jakuzan gidari barri batzuk, ez dabe sendi barruko errizaletasunaren berotasunik ezagutu... kontuz olako «konbersoekin»!

Gure arteko gazte batzuk, euren gurasoegaitik, burgesak eta epelak izan dirala diñoe. Eurak zer izango diran aurretik ikusi barik ezin doguz neurtu, baiña guraso orreingandik ondasunekin baliatzen dira, ta ez gitxi! Ago-bero larregi ete-dagon nago, baiña ez noa orretan arrazoirik ez dabela iñoiz, esaten, sarri egia izaten da-ta.

Zenbat bider entzuten jaken guraso batzueri: «Gazteak egia diñoe, «guk» ez dogu ezer egin». Iñoiz, olakoak entzunda, ta bestea ez mintzearren, ixildu izan gara, baiña beste au bururatu be: «Zergaitik gu pekataria ren ordez, ez dozue NI pekataria errezatzen? Jakiña, orrela itz egiten dauan gurasoak ez dauka bere seme-alaben aurrean argibide larregirik. Kontuz baiña! Orren seme-alabak ez daukee orregaitik, guraso guztieri kritika bardiña egiteko eskubiderik, eta guraso batzueri esker, gaur, eurak, giro obean jaio, azi ta ezi al-izan dabe, edo obeto esateko, ezitzen asiak dira...

Dana-dala, ez sendia, ezta gurasoak be, ez dira zapaltzailleak izan: epelak eta bildurtiak ba'leike, ta or ondorenak, baiña ez danak. Nork sortu ditu bestela, gaur arrika egiteko erabilten diran aldizkariak? Nork lausoak kenduz gaurko giro obeari ateak zabaldu? Niri beintzat, amak euskeran eta beste guraso batzuk errizaletasunean lagundu eusten, aro txarrenean.

Sendia zapaltzaille...? Bai zera! Ondo dagiku sendia apurtu nai dutenak nolako elburuak gordetzen dituzten. Oraiñarteko gure berezitasunak, orrein elburuentzat oztopoak dira, ta euren artean euskerea bera, agozago darabilgun izketa errikoi gozoa. Orren ordez, erdel-itzez jositako euskerantoakin zoratu nai dabez gure euskaltzale gazteak. Erriak darabillan euskerea, betiko euskerea il ondoren, Bilbo'ko igarleak erakusten daben «morodoillua» erneko dalakoan... edo erria latiñizatuz, berezitasunak galduta, unibersalismoaren itxas zabalean urtu. Ori ta ez besterik da, sendia zapaltzaille autortzen dautsuenen asmoa.

Beraz, gazte euskaltzaleok ba-dakigu zein dan gure bidea. Gure nortasunaren aurka doazan iritzieri, ainbat ariñen lepoa emotea obe. Ez gara ez, chauvinistak, baiña gogortzen ez ba'gara, gure izakereak etsai askotxo izango ditu gure buruaren jaube irauntzeko, ta au izan bear dogu euskaldun gazte bakoitzaren elburu bakarra.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

''GUTI ETA GAIZKI''

Olerkariak beti be asmamen ariñekoak izaten yakuz. Nok ukatu? Ta esaera politez eratu oi dabez euren bertso-lanak. Aresti olerkari —poeta— dogu, ezin daiteke ukatu; sari asko eskuratu ditu. Gaur alan be sariak eroateko azpi-jokuz maixu diranak irabazten dabez sariak, igelak naiz gurruak bardintsu iruntsi. Bilbotar poeta onek, alan be, «guti» ta «gaizki» ei daki euskeraz. Zelan, beraz, ainbeste sariren jabe? Guzurra dabil nunbait azpitik. Eta ez yako siñistu bear. Poeta da, ta poetak sarri-askotan egi ordez guzurra saltzen.

*Euskal idazle onek, alan be, gitxi ta txarto jakin arren, maixu modura idatzi ta itz egiten dausku. Ortaz ausarta da Aresti, bai*k *dirauskunez. Ausarta izatea, ostera, ez da gauza txarra, baiña bai ausartegia izatea. Ta Aresti ainbat bider ausartegi agertzen yaku. Berari ez yako atsegin zigorrik artzea, baiña berak bape gizalege barik polito astintzen ditu errudunak eta erru bakoak; txibitots ederra ataraten dau bere idazkortz latzaren bitartez. Gizabiderik ez, ez eutson amak irakatsi antza, ta ikasi ezik zelan agertu? Baiña norberentzat gaizki dagoana, besteentzat ez ete? Aresti'k, beraz, iñok jipoia berotzerik naiz ez ba'dau, berak be eztau arlo orretan eskurik artu bear.*

Ausarta izan bear ei da gaur euskal batasuna osotzeko be. Euskal batasuna! Itz ederra aotan, baiña egitez gura ete dogu batasunik? Norbere edo talde «guti» baten eritxiak —«opinioak», euskal gaiztoz esan—, goitik beera sartzea al da euskeraren idatzi batasuna? Noren batasun billa gabiltz? Ta nok egin bear dau batasun ori? Talde txiki orrek, iskillu puntaz beste guztiai euren asmo biurriak sartu eragiñik? Euskal erriak ez al dau orretan itz egiteko eskubiderik? Eta berreun eta berrogetamar euskal idazleok talde «guti» orren zigorpean jarri bearko? Nor irakasle, irakasle ta igarle aldi onetan? Noiz izango gara demokratak? Erria ta euskal idazlerik geienak nun geratzen dira euskeraren batasuna osotu nai dogun momentu onetan? Ortan astea ezta ausartzia, ez; baiña batasuna egin nai dogun taiuan egitea, ausartegi izatea da, erriari ortzak erakustea, ta euskal idazlerik geienai muzin egitea.

Eta Aresti ausarta danez, euskeraz «guti» jakinda be, euskal idazle batzuen kontra jagi da. Onabere eritxiz txarto dagozan eta txarto erabilliak diran itz eta esaera batzuk:

—Latiñezko corpus *esateko, euskeraz* gorputza *erabilli ei da oraiñarte; iñolaz bez* soiña. *Baiña erromatarrak emen inguruetan ibilli zirala bi milla ta berreun bat urte besterik ez dira. Ta euskaldunak euskal lurrean bizi dirala, ogei milla urte gitxienez.* Soin *ez da izango gero* gorputza *baiño naikoa lenagokoa?* Soiña *ez ei da* gorputza, *ta Azkue'k* soin *(cuerpo) dakar bere iztegi nagusian, eta itz oriatik sortutako besteok: «soiñez-soin», «soingaineko», «soinkatu», «soiñeko», «soinpeko» ta abar. A. Olabide'k* Giza-soña *osotu eban; aurretiko ta arrezkeroko iztegi guztietan agertzen, erriak* gorputz *ordez* soiña *ta idazleok orrela erabilli izan dogu gizaldietan.*

*—*Gogo, *barriz, Arana'k asmatua ei da. Ezta egia.* Espiritu *esateko bai, baiña beztelan itz zarra da. Eta ortarako ak aukeratu ebanean, zeozegaitik egingo eban. Eta berak diñoalako bakarrik guk aintzat artu ta erabilli bear dogu. Oraindiño ezta sortu gurean aren antzeko sena dauanik itzak ikasi, aztertu ta barria eratzeko; bitartean gagozan aren esanetara. «Gogoa arimaren zati» ei da, Aresti'ren eritxiz. Egia ete? Emen be, poetak sarri egiordez egi-antza eder dabela, esan bear. Azkue'k bere iztegian: 7º (c), se usa mucho en significación concreta de* espiritu, ente; *eta adibide oneik: «gogoa azkatu», «g.berotu», «g.bete», «gogoak eman», «gogoargi», «gogoeta», «gogo gaizto», «gogo onez» ta abar. Pierre Lhande'k:* gogo *(esprit),* Dictionnaire Basque Francais'*en. Eta A. Muxika'k: «Espiritu (alma), izpiritu, arima, gogo (c) ats, arnas». Orrela Lopez Mendizabal'ek eta beste guztiak. Eta guk be, euskal idazleok orrelaxe erabilli izan dogu. Itz ori, beraz, bere esanguran lorrindu nai izateak jokabide biurria dirudi.*

—«Batetan», eta ez «batean». Oar au ezta zuk asmatua, ezta ikasia be. «Batetan» au Axular'ek eta Bidasoaz andiko idazle zarrak erabillia dogu. «Eta gero bizitzen zen pake haundi ba-tetan» *diño saratar idazle azkarrak; baiña Bizkaia'n bake aundi* ba-ten *esan oi dogu, ta Gipuzkoa'n pake aundi* batean. *Axlar'ena da izan esaera jatorra; baiña gure artean gaur oraindik bitxia da, rarua da. Erabil begi olan Aresti'k, eta pixkaka pixkaka guk be, ez-jakiñaguok eta erriak, ikasi egingo dogu era jator orretan idazten. Baiña goitik beera makillaka, ari ta oni sartu nai izatea, astakeria dirudi.* Ikus *begi, gaiñera, gai orretzaz Altube'tar Seber'ek bere* Erderismos *liburuan diñoana, 241'garren orrialdean noski. Guk be* mezatara *ta olakoetan esaten dogu, baiña* ba-tetan *ez.*

—Itz mugatua ta mugatu gabea bere aitatzen ditu. Ori, ostera guk naikoa ondo esan eta idazten dogu. Adibidez: gizon bik *egin dabe, mugatu bakoa danean, eta gizon* biak *egin dabe, mugatua danean; gizon* batek *ekarri dau, gizon* orrek *ekarri dau.*

—Beste au, orraitiño, bakana dogu: «Hiru gizon ikusi dut». Buru auste gogorra nunbait. Aresti'k lorik bako gau asko izan ditu —ala, dau?—, kasu onetan dut *ala* ditut *esan bear dan jakin nairik, eta azkenez* dut *esan bear dogula atera dau, Zuberoa'n eta Naparroa Beean olan esaten dabelako. Ta gero, gauza onik aterateko, filosofikeri gogorrean sartu yaku; gazteen artean olan asi diranak ez dira «guti»; bai, ba, olan errezago estali oi dira beste akats batzuk; pluralaren ordez singularra erabiltea erreza ei da, ta erriak be errez ikasiko leukena. Alan be, nik, ez dot munduan ezagutzen izkuntzarik orrela egiten dauanik. Zuberoa aldekoak be, gaiñera, oberena dalakoan mintzatzen ete dira tankera ortan? Deslaizko oker ez ete da izango? Arratia'n be, Bizkai onetan, «nik bidean ikusi dautzut» esaten dabe, «nik bidean ikusi zaitut» esan bearrean. Nun da errazoia? Gu be adizkiera ori Arratia'n lez esaten eta idazten asiko ete gara? Papaoa esango leuskigue. Amaika ordu eder galtzen da bazterretan lelokeriak asmatzen! Eta naspil gorri biurtzen!*

«Guti» dakigunez, ba, guztiok ikasi bearra dogu. Baiña marratik pasa bagarik. Baita alkarri erakutsi be; baiña gizabidearen barruan. Gizon bezela, ta, al dalarik, alkar-izketa gozoan.

«KARDABERAZ»

NABARNIZ'KO GAZTE BATERI

Eup! eta zorionak, mutil! ala... neskatilla ete-az?

Dana dala, *ika* biok, edo *itato* ta *itano*, erabilliko yoadaz (yonadaz) iri idazten dauskadan (dausnadan) idazkun onetan. Neskatillarentzakoa bertatz edo ( ) tartean egongo dok (don). *Itato ta itano* onek or Nabarniz'ko Ikastola Nagusian ikasi nayoazan (nayonazan) oin larogei urte dozakala (dozanala). I garrazika jartzen auen gaurko bide batzuk euskera garbitik aldenduz, *itato* ta *itano*-ereak makaldu egin ba'yoezak (yoenaz) be, bizirik yagozak (yagonaz) ondiño, euskeraz garbi egiten yoekan (yoenan) bazterretan eta idazti zarretan. (Ikusi Azkue'ren Iztegi nagusia).

Nabarniz'ko gazte bat euskera obeto ikasi gurariz euskeraz idazten agertu dokala (donala)-ta asko be asko poztu nok (non), neu be nabarniztarra nok (non) ba-ta, naiz eta urtetsua izan. Urtetsu ta zar ez dozak (donaz) bardin. Larogei urtetik gorakuok urtetsu gozakala (gozanala) ezin ukatu, baiña ez gozak (gonaz) orregaitik zarrak. Ik idazten dokan (donan) AGUR'en zenbaki orretan (II urtea, 25'gn zenbakia), Muniategi'tar Sabin'ak polito idatzi yok (yon): «*Zar eta gazte izatea ez da urteakaz neurtzen baizik gizatasunezko eruapen zabal eta adorez...*» Bide orrez, ba, ni ez nok (non) zarra eta askoz gitxiago agurea. Oin urte bi-edo dozakala (dozanala) bermeotar batek «abuelito» deitu nayinduan (nayindunan) eta egia esan min artu nayoan (nayonan); nik «*negu baltzari Udabarri-ametsez itxarokor begiratzen*» yautseat (yauntsanat).

Zelan egingo dogu euskeraz? itaunduten dok (don). Oin urte batzuk dozakala (dozanala) «NABARRIZTARRA» izenpetuten yoan (yonan) Zabala-Arana'tar Joseba Mirena Biotzeko Semeak garbi be garbi ta txukun idazten yoan (yonan) Bilbao'n agertzen zuan (zonan) EUZKEREA'n. Etxakiat (etxakiñat) arek idatzitako idazkunak irakutzeko erarik gaur izango ete-dokan (donan). Ez yuat uste «Nabarriztarra» zuan (zonan) aren idazkerea larregikerietan galtzen zuanik (zonanik). Aren euskerea or Nabarniz'en be ondo be ondo ulertzen yoen (yonen), naiz ta gaurko mordoillokeri-zale batzuk orrela ez uste. Or yabiltzak (yabilnaz) ondiño arek idatzitako ASTE GURENA ta DONOKIRAKO BIDE ZUZENA. Ez aztu, baiña, orduko aldietan Bizkaierea zala idazleen artean nagusi eta Sabin'en izpijakerea indartsu agertzen zuala (zonala). Zabala-Arana'ren bide ori on-ona dok (don) euskerea ikasteko. Zabala-Arana'ren irakasle kutunena Arriandiaga'tar Imanol izan zuan (zonan). Arriandiaga Ea'ko seme zuan (zonan) eta ortxe daukak (daukana), nire ustez, euskeraz zuzen eta txukun egiteko bidea: Ea-Ibarrangelu - Ereño - Gabika - NABARNIZ - Murelaga-Markiña. Ortxe ikasi yuen (yonen) arek, ortxe guk be. Euskerea esaten yoadanean (yonadanean) Bizkaiera esan gura yuat (yonat). Euskera BATUA lortzeko bein bizkaiereaz jabetu ezkero, gipuzkerea (batez be aditza) ikasi ta lapurderea be eskuetan izango dok (don). Baiña ez dok (don) H-bearrik izango euskera batuan eta Euskalerri guztian ondo ulertua izateko. Euskeltzale batzuek ez yoek (yone) ondo begiratzen ITATO-ITANO bide au; baiña nire eretxiz ez yagozak (yagonaz) zuzen. Alkar-izketa-bide au euskereak yaukazakan (yaukanazan) aberastasunik aundienetakoa dok (don) eta zaindu egin bear yoagu (yonagu) alegiñik geyen erabilliz.

Mutil ala neskatilla ete azan jakingo yoadanean (yonadanean) egokitxuago alkar-artuko yoagu (yonagu). Bitartean ekin eta ekin, jo ta ke, aurrera beti.

URRUTIA'TAR GOTZON
M. B. S.

IKASI DAIGUN EUSKEREA

Euskerea, gramatika aldetik aztertuaz zalantzako gauzatxuak argitu naian egiten diardudazan idazlan oneitan, gaurkoa ez da izango gai bateri buruzkoa, an eta emen ikusi dodazan nire ustezko akatsak nastean agertzea baiño.

Olakoetan egin oi dodan lez, idatzi izan dabezan eran ezkerrean joango dira eta eskuman, nire ustez idatzi biar litzakezan eran.

Ta asi baiño len, lenengo utsa nirea dala esan daidan. (AGUR 27).

idatzi dabe

Ala be asko euskerari begira ipinteko ogia irabazteko be balio DAITEALA lortu biar dogu.

Nik, jaio ORDUKO ez neukan urterik, ez egunik, ez ordurik ere.

Beti pentsatzen genuan mirari bat gertatuko ote ZALA.

Arrizko estatu aundi ayek, BERE BURUEI egin dirala dirudite...

Gaueko bederatzi eta laurdenak orduantxe jo zuten DORREAREN erlojuan.

Auspo SOÑUAREN txapelketa.

Arrate'ko amak zaindu gaitzala GUZTIOI.

Axular'TIK artua.

Ezer esan EZIK joan zitzaigun.

Era berriko lan egokia egin digu, gaurkoa EZIK biarkoa ere bada.

Errioja EZIK ba dira oraindik beste zenbait paraje euskal kutsu jarioa durenak.

Galizia'REN berri. (Idazburua).

Nork argi GAITUZKE?

Ni ere ASTEBETE BI pasatu ondoren nekatu egin nintzan ainbeste entzunaz.

...GUTXI ASKO gure Euskalerrian gertatu dan bezela.

idatzi biar da

Ala be asko euskerari begira ipinteko ogia irabazteko be balio DAIALA lortu biar dogu.

Nik, jaio NINTZANEAN (edo jaio AURRETIK) ez neukan urterik, ez egunik, ez ordurik ere.

Beti pentsatzen genuan mirari bat gertatuko ote ZAN.

Arrizko estatu aundi ayek BEREZ egin dirala dirudite...

(edo, BEREN BURUAK EGIN DITUZTELA dirudite).

Gaueko bederatzi eta laurdenak orduantxe jo zuten DORREKO erlojuan.

Auspo SOÑU txapelketa.

Arrate'ko Amak zaindu gaitzala GUZTIOK.

(Axular'en liburuagaz ba'diardu ondo dago, baiña Axular gizonagaz ba'diardu «Axular'ENGANDIK artua» esan biar da).

Ezer esan GABE joan zitzaigun.

Era berriko lan egokia egin digu, gaurkoa EZ EZIK biarkoa ere bada.

Errioja EZ EZIK ba dira oraindik beste zenbait paraje euskal kutsu jarioa dutenak.

Galizia'KO berri.

Nork argi GAITZAKE?

Ni ere BI ASTE pasatu ondoren nekatu egin nintzan ainbeste entzunez.

GUTXI EDO ASKO gure Euskalerrian gertatu dan bezela.

(Ezkerreko ori txarto dala esaten ez naz ausartzen, baiña nik era orretan erriari sekula ez dautsat entzun).

KAMIÑAZPI

ABANDO'KO ARRANOA

Euskera-idatziaren batasuna bakarrik ez da. Guk, gizonak ere alkartu bear degu, baiña ez indarrez, indarkeririk ez degu nai; txiki-txikitandik auxen ikusi ta nabaitu bait-degu.

Nolako batasuna nai degu? Nolanaiko batasuna ez genuke nai leporatu. Esate baterako, talde batzuk, erriko gazte batzuei leporatu dien batasuna, iñola ere ez!

Izkuntza salbatzeko aberria maite bear degu. Aberri bateko kultura erritar danentzako da. Euskal-jakintza, mota ta idea guzientzako ogia da. Itz batean, argi ta garbi esan bear degu, euskeraren batasunean, «oportunistentzat» tokirik ez dagola.

Bestalde auxen esan genezake. Leporatu nai diguen batasunagaz, ez degu ezer jakin nai. Ta indarrez datoztenez gutxiago.

Arana Goiri'k, euskera etzuan indarkeriz berpiztu, arrazoiaregaz baizik. Arana'ren irakaspenari eskerrak, gaur euskalerria ta euskera bizi dira. Gizon eredu ta izan ez ba'gendu, urrun ta galduak aurkituko giñake.

Euskera idatziaren batasuna indarrez sartu nai duten «tekniko» bikaiñ oiek, euskeralogo argiak gidari dituztela, auek denak, Arana'ren oiñetako lokarriak askatzeko lain ere, ez dira.

Euskera ta erria; orra, guztiz loturik dagozen bi elburu, euskeraren batasuna ta erria. Elburu nagusiena noski, erriarena, ta urrengo euskeraren batasuna.

Bidezko ta bearra da erri batentzat euskeraren batasuna, orregatik ondo oldoztu, sakon ausnartu ta aspertu eziñeko alkar izketagaz, batasun ori lortu bear degu. Beraz, ba-dakigu egiazko batasuna nun dagoen.

OSARTZU

POZAK ETA KEZKAK

Adarra joten-edo, atzizki bakarra ta egokia erabilli ei-gendun. Bi izan ba'ziran be, Mañari'ko ta Mallabi'ko txikixa be bai, cornetiñik jo ez daiguen, ea beste batzuk be: «ra», Mallabi'ra, Txantxa-Zelai'ra, Urkuzu'ra, ERMU'RA. Urriñekoetan Ondarrua'ra, Getarixa'ra, Donostia'ra (xa barik), baiña Azpeitti'ra. «gain». Urki gaiñetik, Maillabi gain-gaiñian, Matxari gaiña. «oste», Isasi ostean, Urkuzu ostean, pean, alboan... Itxuras «n» orrek, aintxiñako pitxoikuak lez atzerazko ostikadea euki, ta bigungarriren bat bear, «an» «en». Ez baiña beti, «a» ori gogor ezarrita daukeenetan bakarrik: Musataixa'n gora juan eta Pagei'n agertuko aix. Ta, pasauak pasau, joakitt Ipurua'ra, ni Sansaburu'ra najoiak-eta.

* * *

Makalik darabilguzan euskalkieri eutanasia egin, ta lau katuk asmatu ta erdi ikasi daben euskeranto-romantxean oiñarrituta, bereari eusten jakin izan ez dabenari libruetan ikasi eragin jeroglifiko mentekatiko barria. Bitartean euskerea ito, zikindu, orbandu ta eortzi. Aitor'en, Lartaun'en edo Zumalakarregi beraren mutillak egin ebezan alegiñak, euskaldun irauteko, lotsaz beterik oinperatu. Euskereak, bere semeen aulkerian be, indarrak ditu oraindik, baita laguntzailleak be, ta oneik be ondatu egin bear iraultzak erria azpiratuko ba'dau: Euskarazaleak, Etor, Kardaberaz... ta alfabetatze orretan lanik ederrena egiten ari dan, gure euskaldun mutiko zintzoa dan KILI-KILI.

* * *

Aita Xanti aurkitu dogu kalean, ta baita galdetu be: «Noiztik dakizu Jaungoiko bakoen banderea dan h ori ain polito jarten?» Ta bere erantzuna: «Aspaldi lantxo bat agertu yausten aldizkari baten, ta axe bera artu yuek eta aches josite argitaratu yaustek. Leungarri-edo, ale bi diau bialdu yaustezak. Nik, nere aldetik, etxakiadaz h'ak nun jarri».

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

POLITIKAREN IZANA

Beste egunean idatzi nebanari jarraituaz, politikaren egia azaldu nai dot: ez dakit nora arte lortuko dodan. Emen argitasun batzuk baiño ez dagoz, munduan izan diran idazle ta asmatzaille batzuen ikasketak ikusirik.

Politika ikasteko ta ikusteko arazo multzu aundi bat eskurartetu bearrean aurkitzen gara: sendi, alkarte, alkargo alderdiak, eta beste milla batza, ikaste ta jolasketakoak eta abar. Baiña edonok daki gauza guzti orrek egiten dauzana, gure gizartea, mundu guztiko gizartea dala. Gaiñeraz ez da aiztu bear alkarte guzti oneik, gizonen ganetik eta Estadu edo Latarriaren azpitik dagozana, au da, bien bitartean.

Askok esaten dabenez, politika dana izan bear da multzu guzti ori, ta multzu lez zuzendu, kidetu; onela Spinoza'k, eta Locke'k, Montesquieuk eta Laski'k: Oneik, alkarte bakoitzaren bere jabetza eskatzen dabe, bitarteko alkargoen eskubideak zaindu bear direla diñoe; Estadua ez dala sartu bear euren arazoetan, askatasun osoa bear dabela euren elburuak betetzeko, gizartearen onerako ba'da.

Onen etsaiak, Hobbes'ek, Rousseau'k, Mussolini'k, Schmitt'ek eta enparauak, ostera, Estadua, ta onek gura dauana dala politika arazoa diñoe. Au da Estadu arrunten sorburua.

Kontuan euki daiguzan Estadu onen gaitzak, kondairan zear. Uste dot iges egin bear dogula euretatik. Ezin leike, esate baterako, Elizak eta bere gizonak, Estadu ta politika baten ustegoak arturik, bere elburuetarako jarri, ba-dabez beste euren arazo batzuk mundu onetan, eta Estaduak, ezer ba'da, askatasuna emon bear dautso alkarte oneri bere gauzak egiteko, bere izanaren egia betetzeko.

Multzuak, askotasunak, gizonaren aunditasuna ta askatasuna aunditu egiten dau; oiñarriak emoten dautsoz bere almenak sendotu ta argitaratzeko.


Baiña, itxi daiguzan egal onek. Ondiño, bear ba'da, ez dogu ikusten guztiz argi zer dan politika: noiz eta zelan sortzen da? Zelakoa da? Zer da guretzat, edo ze indar da gure biziera aldatzeko edo moldatzeko?

Politika, gizonaren eguneroko ekintza da, eguneroko lana; baiña aintzat arturik oiñarri batzuk, gizona bultzatu ta jasoteko bide batzuk, iñori kalte barik, mesede ta aurrerakuntza gizon oneri, gizarteko dan lez, emoten dautson egitura, zuzendari batzuek bidezko, gidari artuta, eskubide ta eginpide guztiak zainduteko.

(Argiago aitu nai ba'dozue, esango dautzuet, euskeraz ezer ez dagola idatzita, sakontasun apur bategaz, beintzat, arlo onetan, Rikardo Arregi'ren «Politikaren Atarian» ez ba'da, baiña ikusi zeinkeze erderaz Carlos Ollero'ren «Estudios de Ciencia Política». Editora Nacional. Madrid, 1955).

Nun egiten da, edo egon al-izaten da politika? Erantzunik onena euskal itzean bertan dogu: «Erri-arazoa», edo «Erri zaintza», au da, erriaren ekintza, jardukizuna, norberen eta gizartearen arazoak konpontzen. Bata aginte aldetik, eta bestea gizartea egiten daben guztien aldetik. Arazoa da, baiña nun dago arazo ori, nun? Nik uste dot leku guztietan dagozala arazoak: origaitik, gizon bi dagozan lekuan edozein basterrean, politika egiten da: errian, urian, lurraldean, aberrian, danean...

Gauza guzti oneik ikusirik, ba-dakigu, gitxi gora-bera, zer dan politika: Dana da, gizonaren onerako ta aunditasunerako egiten dan guztia. Orain argituko dogu, al'bada, apur bat geiago, zelan dan bearrezko aginte bat, agintariak eta aginduak, erri arazo guztiak aundiegi egin eta dana austu ez daiten. Erriak, edo obeto esateko, gizonak, norberen aunditasunagaitik, edo gaiztakeriagaitik, bestea zapalduten dau askotan:



Emen irudi edo antzeko bat egin dot: iru erri esan gura dabe, iru erri ikusten doguz (bardin izan leitekez milla, edo munduko guztiak): Bakoitzak izakera bat dau, bizibide bereberea.

Banan banan ikusi ezkero, barrutik, Aberri edo erri bakoitzeko gizartean azalduko yakuz, gizon bat bestea baiño aundiago izan naiean, batzuk diru naiak, aberastasunaren atzetik, edonor zapaltzeko prest, besteak ikastunak, jakituria baizik ardura ez dautsenak; onek langilleak, arek alperrak, eta... eten gabe onela. Baiña egi bat da aundia: Danak erri batekoak dirala. Eta alkar ikusi eziñik ba'dabiltz, alkar ilgo dabela, ta txarra, gaitza baiño ez dala egongo aldean: an ezta izango bizirik, bakarrik eriotza.

Orduan agertzen da gizon zintzo ta sendo bat. Erriak beragan ipinten ditu itxaropenak: bera nai dabe erriaren zuzendaritzat, naita ez guztiak, bai geienak. Orduan gidaritzat jartzen dabe. Gidari onek erria baketu bearko dau, ta aurrerepide batzuk emon. Laguntzailleak artuko ditu, bera leku guztietara ezin dalako eldu, eta arazo guztiak ez dituzalako aitzen be. Onela sortuta geratzen da Estadua.

Erri barru bakoitzean, erdi bardin jazoten da. Ta zuzendarien bidez aituko dira, alboko erriakaz eta Aberriakaz, baiña beti, lenengo barruko bakea lortuta: Bakea da aurrerapiderako lenengo mailla: bakea, gizona zapaldu barik, bere gizontasun guztia, osoa, lortzeko askatasuna emonda, eta jakin erazorik zer dan askatasuna ta gizontasuna: au da, jakintza bat eskeiñirik au dabenak.

(Jarraituko dau)

GARATEA

LAGUN BATERI ESKUTITZA

Triste izango duk noski, jaioterria oso urrutian utzita bizitzea. Beragaitik, pentzatzen diat, egoki izango litzakela, lerro batzuen bidez, emengo berri batzuk bidaltzea. Ori iretzat pozgarria izango delakoan bai negok.

Jendea oso naastua zegok, izkuntza, oitura, kultura, folklore eta erlijio aldetik. Emen, euskeraz batzuk h'kin idazten ditek, besteak berriz, euskeraz eta erderaz; gero gelditzen dituk, euskeraz bakarrik idazten dutenak eta h'rik ipiñi gabe. Gure erria bakarra duk, Euskalerria; gure izkuntza bat, euskera. Ala ere ba-dituk agerpen aundirik eman gabetanik, euskera-erderazko «izkuntzari» batua deitzen ziotenak. Ori zera duk «da bomba h».

Erlijioa, etzekiat jakingo duken, mito bat duk. Aurreri ez zaiek nunbait erakutsi bearrik, ez alkar laguntzerik, maitatzerik, errespetatzerik. Kristo'k erakutsi eta agindutakoa, orain bat-batean, aize bolara antzera, dena mito biurtu duk. Eleiza aitzaki dela ta, orain bataiatzean modan zera zegok: Felipe'n izena jartzea. Izen orrekin asko omen dituk bataiatuta daudenak...

Leengo oitura zaarren artean, gaur egun beste bat ere ipiñi bearra zegok. Gabezmendi aldera jun, naiko ardoa edan eta lurrean etzanda gorputzak ankazgora, izarrari begiratuaz gelditu (ori denbora ona egiten dunean), gaztediaren joku berria.

Esate baterako, ez dituk ez gauz asko aldatu; leengo urtean bezela gutxi gorabera. Batzuk gorriak, besteak zuriak, eta noizik bein beltz batzuk ere azaltzen dituk. Gutxi egia esateko. Langilleak nekez, eskaleak goserik, zakurrak ankutzik, dantzalekuak beterik. Gauz guztien prezioak gora, negarra, irriparra, otza, beroa, gaba, eguna... beti bezela.

Urte zaarrak iges egin eta berrian sartuta aurrera goazek. Nere biotzak joan dan urtean, oso kolpe desberdiñak jaso zizkiken. Alde batetik eriotzak: Nere aita, Alejandro Mendizabal, Jose Artetxe... otoitz bero bat beren alde. Bestetik berri pozgarriak, lagun berriak ezagutu nizkiken: Lopez Mendizabal, «Basarri», Arenaza...

Besoak zabalik, urte berrian, itxaropenez beterik nauk, ez diat ezer eskatu nai, eskeiñi baizik. Neure izerdi neke eta lanak, gure erriaren osotasunarentzako joan bear dituk, ekintzaren bidez, maitatuz eta errespeto aundienakin.

Onekin bukatu nai diat. Emendik urte batera, berriro idatziko diat. Bitartean jarrai. Gau illun onetan, izar batzuk ageri dituk goiko zeruan... pakea borondate oneko gizoneri.

Besarkada bat.

RAMON ZAPIRAIN

ETA PAKEA GOGO ONEKO ANDRA-GIZONEI

(Jarraipena)

URREKO SORTALDEA

Gudarako zemaiek ditugu; Ejito'k atara dauz Isrrael'ek Sinai-aldetik aldendutea ukatzen ba'dau... Onetan, zemaiek baiño eztirala izango itxarongo dogu.

Arabitarrei oraiñarteko ezetza, Israel'en aldetik, ulertzen dogu. Sei Egunetako gudatean lorturikoak gogoan izanaz: gaur, burruka egiteari bideak izteko mugak, Jordan ibaiaren eta Suez erretenaren bazterretan dagozela, aspaldikoak baiño askozaz errezagoak dituzte israeldarrek zaintzeko. Beste aldetik buruan euki bear da —ta israeldarrak ba-daukie— lenago, 1956'n ONU'k babestu eban itunaren gomuta mingotsa: israeldarrek, besteen gogo onaren ustean, Sinai ta Suez aldetik joan ziran, gero, arabitarren bete-bearra egin barik ikusteko.

Onezaz gaiñera, begiratu daieguzan ondasunaren arloko irabazpenak (Sinai'ko arriolioa ta abar). Israel zur-zur dabil, barriz alde-egitea baiño lenago ziurtasun batzuek eskuratu nai dauz; ta tinkoago egoteko Aprika'ko lendakari batzuek egindako alkarrizketan, arabitarren ukoa israeldarren gentza-arauari, argi ta garbi auxe erakusten dausku, alkar bizitzarako egizko bidea billatzeko gogorik eza, arabitarren aldetik.

IRLANDA

Batzuek, asikerean, erlejiñoko arazo soiltzat artu ebena, gaur edozeiñi gorengo mailleko jaurkera-arazo lez agiri jako, auxe: Irlanda bien batasuna.

Irlanda, amaikatxo aldiz zigortua: izkilluz menperatu eban Ingelanda'k, ta onek bere andikiei emon zearo ostu egien; erritarrek etxetik alde, ta ingelandarrek etxe utsak betetzen. Joandako gizaldian erritarren erdia baiño geyago (iya 4 milloi) errikatu zan.

Goiko indarkeriari erantzunez, Irlanda edo Eire'ren erriak menderik mende jarkin egin eban, eta gizaldion berariz, guda agiri batera elduaz. 1922'nean Ingelanda'k, gizadi osoko ostetzaren aurrean amor egin bear izan eban, Irlanda'ren Laterri Azkea sortzen utziaz, andik bereala Errepublikara aldatu ta Commonwealth'etik urten zan (orduan, Commonwealth'eko aberri guztiek «erreñuek» izan bear ziran-ta), baiña ekiñaldian ingelandarrek betetako lurraldea (Ulster) banatu ta bat egin zan Ingelanda'gaz.

Aspaldion, Ulster ingelandar-zale orretan, antxiñako era txarrekaz jarraitean, bertoko benetako erritarrek (etxetik alde egin ez ebenen seme-alabak) jagi ta gudaroste berberari aurre egin dautsoe. Burruka onetan ba-daruez urte batzuk, erritarrek (katolikuek) gitxien bat izan-arren. Oraingoz, eztago norakorik. Erabagikizun aratz bakarra, Wilson, Ingelanda'ko aurkako-buruak azaldutakoa izan da; bai lana, onek esana!: Irlanda biek batu ta Commonwealth'en barriro sartu, Ingelanda'gaz artu emon bereziak izan daitezan. Orratiño, Londres'ko Jaurlaritzaren erabagi bakarra, indarkeri gogorra («orden» orri eutsi bear yakola-ta) izan da.

Eta orrelan, Belfast aldetiko eriotza-barri baltzak egunero jatorkuz: erri batek bere eskubideko batasuna lortzearren burruketan diñardualako.

(Jarraitzeko)

ARRIORTUA'TAR ANDER

OARRA

«Anaitasuna» aldizkariko azken zenbakian, Xabier Gereño'k izenpetuta, oar bat agertu da.

ALBIZU'tar Kepa'ren izenean Gereño jaunari adierazo nai dautsot, AGUR'eko 14'gn zenbakian agertzen zan lana, OPORRALDIA izenburuagaz, ez zala bere lagun dan Kepa Albizu'rena, baiña bai ALBIZU'tar Kepa'rena, ta onek be argi itzi gura dau, ez dabela nai aldizkari orretan bere izenik erabiltea.

Gereño jauna, barriro be erratu zara.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER'EK



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

ARGI EGIN EBAN

Gizon baten eriotz ondoren «La Gaceta del Norte»k auxe iñoan kurutza txiki baten ganean: «Oso guztiz agurgarri jakintsua». Ta kurutzapean jarraitzen eban esanez, don Pedro de Menchaca Lendoño... Au zan il txartel agiria.

Gizon au nor zan? Orain larogetamaika urte, Mungia'n, lurrera eldu zan. Lagun bakoitzak bere almenak eta deia dakazenez, gizadian gizontasunez jokatzeko, Pedro Mentxaka'k ba-zituen almenak eta deia. Gizonei argi egiteko deitua zan.

Abade izango zan, orretarako deitua izanik. Ta bide orretan agertuko zituan, Egilleagandik arturiko almen aberats ta mesede-egilleak.

Gazte gazterik bere jakituriz ta gizontasunez irabazi ta egoki, egokion tokian bizi izan zan, Gazteiz'ko Obispadu ta seminarioan bearrean. Sortzez artu zituan almenak, antxe aidetu bear ebazan iru Probintziri argi egiten.

Zarataz ez, baiña ixiltasunez eta indartsuki, argi egin eban Euskal-erriaren erdian. Bere eritxia, gure kristiñau siñismenaren onerako, argitsua ta ziurra izan zan gizonen artean. Dn Pedro'ren argiak dizdiz eta dardar eragiten eban.

Jakituriak, sarri, gizonen barruak puztu egin ditu. Gure erritar ta adiskide onen buru-biotzak jakituriaren bidez gizondu ta lagun arteko biurtu ziran.

Gazteiz'ko abade ikastetxen mutillak argintzen alegindu zan. Bera ain argi ta jakintsua izanik, mutil beartsuentzat poza ta indarra, beti, izan zituan. Iñork ez eban aren izenik, iñoz, alperrik agotan erabilliko.

Zure gizontasuna agertu ta onartzeko erak, nun-nai, emon dauskuzuz adiskide on orrek. Gizon zintzo ta jakintsu ziñanez, zeure erri-zale be izan ziñan. Gerra aurretiko uda guztietan, ementxe, Mungi'n bizi izaten ziñan. Zure bizia ta poza zeure erritarren artean zeunkan.

Uri aundietara ez ziñan joaten, zeure erritik igesi, udako egun orrek igaroten. Etxeko bat ziñan zeure erri ontan, nai ta guda ezkero, ona etorri ez ba'ziñan be. Bialdu egin al zinduzan bateren batek emendik? Zure gizontasuna, beti asmau neban ona begira ta emengo barri miñez. Guztientzat bakea izan ziñan. Batez be egiaren bakea.

Guzti au gaitik, Dn Pedro Mentxaka, zugaz guk, mungiarrok, zor bat daukagu. Zure izena ta irudia, ementxe geratu bear dabe betirako Mungi'ko erriaren arririk ederrenaren gaiñean.

Mungia'ren goratasuna izan zara larogetamaika urteren buruan. Orain, guk goratuko al zaitugu zure gizontasun argitsuaren izenean.

SOLOZABAL'DAR PAULIN

IDAZTI AZTERGARRIA

«La intervención del clero vasco en las contiendas civiles 1820-23».

Gogoz irakurtzen asi, gogoz eman ere irakurtzeari bukaera. Kondaira izateko, atseginez irakurtzen dan liburua iduritu zait. Ez arritu. Kristau ta euskaldun batek ernagarri zaizkion deiak entzungo bai-ditu bere orrietatik barna dabillenean. Ain ziur ernagarriak, kontatzen diskigun gertakizunak gaurkotu egiten zaizkigulako, batez ere ikasi nairik azterlari bere mamian murgiltzen danarentzat.

Gizona, edo kristaua, edo apaiza nolaz buruz naastu ditezken. Nolaz asmo onak sarri oiñarrietan etentzen diran kristautasunaren egi bakarra ez ezagutzeagatik. Nolaz bide txarretatik abituta, gorrotoaren iturrian edanda erriak okertzen diran anaiak anaia il arte, apaizak apaiza salaturik etsai bezela politika arazoak eragiñik, kristau maitasuna il arteraiño.

Garai artako guttun edo agerbideko paper asko dakarzkigu. Guttunez-guttun agertzen dijoakigu kondaira guztia. Guttunen bidetik ikasten goaz orduko gertakizunak. Baiñan ain tajutuak, elkartuak, ain ongi ipiñiak ari baten jarraipean, gezurrik gabe esan arazi arteiño Montoya jauna eule trebea nabarmentzen zaigula bere lanean. Ondorioak?, entzun itzulita:

«Oi zana, bein eta berriz berriztuten da. Cadiz'ko jaurgotiar garaian edo, gero, errege-leiñu arteko gudaketetan bezela, gaur ere «marxista» erasoan, Berri-ona gizarte-erriketa-ziñispideen jardunak eraginda aurre-asmo ta aintzinkerien azpian asmatzen da; Josu'ren berrionezko irakatsia, gizasemearen izate laburrean «eguneko» diran iritzieri eusteko ta zurkaizateko erara itzultzen da, ta bakoitzaren «gaur» orretan «jaiki» aundiena duan bidetik Mesias bat eratu».


Ikasbide ederra da liburua gaur bizi geranontzat. Bi gizaldi auen bitartekoentzat ere ez da makala. Kondairak erakutsi egin nai izan digu, baiñan prest ote gaude ikasteko? Gaurdaiño ikasbiderik jaso ez ba'degu, beldur izatekoa da gerora ere gure itxutasunean jarraiko degula gizakiok.

«Zelako goibel ujolak jotzen dun kistarren biotza, ainbeste gogorkeriz gaiñezka datorkigun Kistar izeneko gizadiaren kondairari atzeruntz begiratzean. Nola jokatuko ote zun gaurko mundu onek, Josukisto'k eta bere bialduak edo lenengo kistar alkarteak, eurenez, ziranean-zirala, gogorkeriatzaz ezagun eragin zuten kistartasunaren aitorpena artu al izan ba'zun?»

Apaizak «guerrilletan»! Kristauak alkar iltzen! Ikasiko ote degu? Zuzenduko ote gera? Asmo zuzen onetaz dabillenak aski erreztasun arkituko du liburu onen orrialdetan nundik ez degun abitu bear. Nundik ibilli bear degun ikasi nai duanak jarraitu egin bear biotz osoz, egiaren bide dan liburu onetatik, bere esan nai bidetik. Jo, bai, euele on batek trebetasun zoliaz eundu digun kondaira zati ontatik barna dijoan bide lakatzetik...

Erderaz izanik ere, liburu onek ba-ditu amaika jakingarri gaurko euskaldunontzat.

OLAZABAL'TAR XABIER



Gaur eguneko emakumearentzat bere Bankoan kontu edegia eukitea legezkoa da.

Lenago, aurreratua aurreski-gutun baten gortetzea aiña.

BANCO DE BILBAO

onek emakumeen eskubideak onartzen ditu

EZKONDU AURREKO SAIOERI BURUZ

Gazte ezkongabeen iritziak. Joan zan jorraillean SHELL'ek zuzendutako galdekuntzari egindako erantzunaren berri, zerbait agertu nai nizueke.

Galdera, alegia, edo galdekuntza onen mamia auxe izan zan: Ezkondu aurreko esperientzia zer? Aldizkari batean irakurri dugunez, galdekuntza oneri era onetara erantzun zioten: 100'dik 44 neska ezkongaiek, ezetz diote. 100'dik 42'ik baiezkoa. 100'dik 13'5'ek zalantzan edo ez dakite zer eratara erantzun.

100'dik 46'3 mutil ezkongaiek, beste mutillakin ezkondu aurreko esperientziak edukitako neskagaz ezkonduko lirazke. 100'dik 20'9'ik zalantza aundiak dituzte. Galdekuntza oneri egindako erantzuna ikusi ondoren, aski ta garbi nabari da, gaztearen ezikera ez dala oso egokia, nolabaitekoa baizik.

Bestalde, etxeko ta ikastoletako ezikeraren atzerapena, ikusten da. Guraso geienen astirik ezak, lanperatuak, buruauste anitz etabar, aitziki dala, seme-alabekin alkarizketa zer eratara asi, ez dakite.

Gazteen askatasuna ta «autonomia», begirapenez aztertzeak ez du esan nai, eak nai duten guztia egitea. Ez orixe! ulertu ta aditu-erazi bear zaie. Zenbat eta askatasun geiago, orduan ta erantzukizun aundiagoa datxakio.

Gure seme-alabak mundu onen aurrean, bizitzaren gora-beeretan dituzten arazoetan lagundu bearrean arkitzen gara, ezin genenzazke bakarrik utzi. Ezkontzeko gogo ta bokazioa eduki ezkero, ezkontze aurreko artu-emanak ezkontzara begiratuaz egin bear dira. Ezkontzaren aberastusunerako, alkarren zoriona arkitzeko.

Onek ez du esan nai, urte askotako lanik danik, ezkontzak eskatzen duan erantzukizunerako baizik. Munduko atsegin, goratasun ta aberastasunen zale diranak, maitekeri guztia euren jolas eta atsegiñetarako artzen dituzte. Eskon aurreko esperientzirik garrantzitsuena auxen da: bere maiteak, alegia, ezkon lagunak miñik ba'du, gure arimetan miñ artzen dugu. Bestea, neke miñetan ikusi baiño berak jasatea naiago izatea. Maitasun era auxe da maiteminduek ezkon aurretik eziaz ezkondu ondorengo gertutzen saiatu bear dutena, apurka-apurka osatu. Onezaz gaiñera, etxeko arazoetan ezkonduak, etxeko lanak arinduaz, alkarri lagunduaz, alkarren arteko batasuna ta pakea iritxiaz, ezkon-lagunaren zoriona lortutzea.

Gizon ezkongai zenbaitek esperientzi osoak arkitu nai izaten dituzte. Sikolojiaren bultzadagaz ezkon aurreko esperientzi auetan buruz bera murgiltzen dira. Gaizki eziak daude noski. Usten dute-edo, gizarteari esperientzi-mito au ezarri naian dabiltza, au, ipokresia utsa danez, emakumearen nortasuna alderatzen dute. Metodoaren aldaketa aundia izan arren, ezikerarik onena eredu izatea, ejenplo ematea da. Aurrak amaren sabeletik jaio dirala jakitea ez da naikoa. Ezkondu aurreko artu-emaneketan, gerorako gertutze ontan, geien bat lagunduko diona, erlijioa izango da.

Ba-dakigu ziur zenbat errietan gazteak, ezkon aurreko esperientzi osoak eskuratzeko erraztasunak anitz dituztela, adibidez «pildorak». Erraztasun auek izanagaitik; Zuezia'n, 100'dik 20 neska aurdun eskontzen omen dira. Inglaterra'n abortoa legaztatua egonagaitik, neska ezkongai batzuk aurrak aurretik izaten omen dituzte. Ta beste batzuk, aurdun daudelako ezkontzen omen dira.

Zenbait girotan Jungoikoagaz mintzatzen ikaratzen gara. Jainkoa il dala ta gaurko gizarteak, Beraren bearrik ez dugula esaten dugu. Baiña nik usten dut, Beraren bearra, iñoiz baiño geiago daukagula.

SAGARTZATZU

SIÑETSI EZIN, NAIZTA

«FIESTA DE CANIBALES»

Izenpuru orrekin, igaro dan Lotazillaren 28'gnean, «Aragón-Exprés» izparringiak, 5'gn orrialdean argitaldu eban, berak dirauskunez, «El Pensamiento Navarro» egunerokotik artutako idazlan bat: Urrillaren 31'gnean, gabean edo arratsaldean asi ta urrengo goizalderarte Aralar'eko Txindoki barrenean aurkitzen dan Larraitz'ko Amaren aurrean eta bertako auzune garbian ospatu zan «euskal jaia» zala-ta.

Leendik be izan neban «jai» orretzaz zerbait barri, adizkide zintzo batzuk esanda, baiña ezin siñesturik nago, nork ekarri daustan ez dakiten (nere lantegian itxi eban eskuz-eskuz emoten ausartu ez zanen batek) «Aragón Exprés» izparringi orrek dirauskuna. Ezin dot siñestu orrenbestean aragikeriz lizunduta, siñesgabetuta, loituta, eusko gaztedian iñor aurkitu leikeanik, naita ba ei-da, izparringi orrek diñoskuna baiño zerbait geiago esan leikeanik alderdi maite, alai ta txukun artan jazorikoaz.

Izparringi orrek idazten dabena euskeralduko neuke, naita luzetxua izan, baiña, egiz dirautsuet, lotsatu egiten naz gure euskera txukun ontaratuten itz eta egikera loi orreik, baiña berak, ingi orrek diñoan lez idatziko doguz itz batzuk:

Goizalderantza, aragikeriz berotuta garraxika ei-ebiltzan: «Venid todos a la feria de la vida; pues aquí saciaréis todos vuestros deseos» ta abar ta abar, baiña ez dot nai orrelako geiagorik idatzi, naita askotzaz geiago ekarri. Ba-diño, baita, bertan abestu ebenak «Ez dok amairu» taldekoak izan zirala, ta aurkezpena barriz, apaiz ikasle izandako batek egin ebala, kistar-siñeskerea ta garbitasunaren aurkako azalpen sutsuz. Kontuz irakurle eliz magaletik alde egindakoakaz, euren igeskerea zuriztatzearren tentelkeri aundiak egiten dakie-ta.

Ezin dot siñetsi izparringi orreik idatzi daben guztia, naita gazte asko ikusi, nora jo ez dakiela, atzerri oitura zale ta gogaietan nastuta; lizunkeri ta obenean geiegi sartuta, baiña guzurra ala egin izan, tamalgarria ori, euskotarron izen ona zikinduten dauskue-ta. Guzurra ba'litz, orreik idatzitakoa, zergaitik ez dabe erriaren aurrean kementsu guzurtatzen «Ez dok amairu» ta ainbestean aipatutako jai orren antolatzailleak? Eta beste aldetik, izparringi orreik dirauskuena egia ba'da, dana ez ba'da be, zerbait ba-dalakoan gagoz, aspalditxuan zabal dabil zurrumurru ori-ta, zergaitik ez dautse Erri zintzoari, benetako euskaltzaleei, garbi ta argi egia esaten, dakitenak: Nortzuk diran, euskerea, erri-oiturak, ta eusko-jakintzaren bitartez, euskotzale lez burua aurkeztuaz, gure gaztediaren artean kistar ziñes-gabetasuna, lizunkeria ta loikeria, baita gure emakume garbi liraiñetan, euzkotarroi ondo ez yatorkuzan gogaiak ereiten dabiltzanak?

Eusko anayok, alkar ezagutzeko ordua da, ta Erria'ri egi-egia azalduteko aldia. Goazen guztiok orretara, bakoitza bere bidetik, baiña asmo zindo batekin, azkenez danon naia lortu daigun: benetako azkatasuna.

ALTUNA'TAR JOSU


Gabon Zarreko Lotsa

Ezagun danez, Euskalerrian egunero asko edaten da, ta jayetan larregi; baiña joandako Gabon Zarrean, ikusi ditugun moskorrondoek izu-ikara ta iguiña ekarri dauskuez batera: Bilbo'ko izparringiek berberek agertu bear izan dabe zelan uriko gexotegi ta laguntza-etxe guztiek bete ziran, edari biziek estuturiko andra-gizonakaz. Bost urteko umiek be egon ei ziran!

Auxe da lotsaren lotsa, Euskalerria'ren oben larria!

Noiz ASKATUKO gara euskeldunek orain eroaten gaitun ordikeriatik?

ANDER



ONA ta RAM

EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

Zaldibar

AGUR aldizkarikoeri:

Adizkide onak. Tamalez oso gainduta adierazo bear dautzuet, igarotako lotazillaren 25'gnean, bere eriotzari besarkatu zala, bizitzan senditar eta enparauak ain maite genduan arreba Maortua'tar Miren. G. B.

Benetan, gogoko izan eban AGUR aldizkari ori, ganera, baita berorren lerroetan argitaltzen diran lan onurakorrak, tinko onartu ta aldeztu izan zituan ondoren igaro eban bizitzan.

Auxe da araberea, bere ereduzko bizitzari aurpegi emotera beartzen nauana, ta ori bide, adi emoten dautzuet, naiz eskutitzez edo beste egokien jatzuen erara, adierazo daiztazuela AGUR orretzaz galditu ba'jako ezer emon bearrik.

Baita, aldi berean adi emotera natortzue, naiz eta tamal andiz, egoki izango dozuela bere izenean bialtzen zenduen aldizkari ori, aurrerantzaean ezeztatu egitea.

Bere oroimenez, zueri arren ezkatzen dautzuet otoi bat.

Ba-dakit zuekandik ondo betea izango dala nere eskari au ta eskartzen zaituet.

Agindu nere alean dagona zuen adizkide dan.

MAORTUA'TAR MARTIN'eri

* * *

AGUR'etik: Benetan mindu gaitu Miren jatorraren eriotz barri onek. Ta ez AGUR gurearen maitale ta eusle onenetarikoa zalako bakarrik. Ori ez da ba, bere bizitza zuzeneko ezaugarri txiki bat besterik izan. Ez; Maortua abizena ta errizaletasunezko maitasun garbia, urteak zear, urte aundiak zear, beti bat etorri diralako baiño.

Gure erri zaar onek erasoaldi gogorrak izan ditu gizaldiak zear, eta Jainko bakarrari eskerrak, beti izan ditu Miren'en antzeko emakume ta gizonezko zintzo ta bearrezkoak. Gure gizaldiko atzen-erdi onetan dirudi, erasoak, aibeste bidar gure endak gaindu al izan daben eraso orrek, gogorregi artu gaitula. Ta gure odol zaarrak, nekatuta-edo, ezin dabela seme-alaba kementsurik sortu, millagarren aldiz etsaia ondatzeko. Dirudi... diñogu, ta irudi utsean geratuko al da gure burutapen itun au, ta bear dan itxarkunderako euskaldun sendo ta garbiren batzuk sortu.

Miren'en gogoaren alde otoitzean ari garala, orrenbeste be eskatzen dautsagu Urtzi'ri, ta berari, Miren'i, bitarteko izan dagigula.

AGUR'ekoan izenean.

IBUR'EK

Basauri

AURRERA GAZTEAK!—*Atzean itxi dogu beste urte bat, alan-olango oroimenez, baiña, urte bat geiago. Asi dogu 1972'gngo urtea ta beronen gan daukaguz jarrita gure itxaropenak. Gure ametsik andien bat, Jakintza Alkartea da. Au lortuteak ba-litzake aldi andia eroatea, baiña, derrigor zerbait egin bear dogu errian jakintza gaietan, bai jolas-talde ta jakintza-taldean bitartez, edo baita oneitariko taldetan sartu barik diran ta erri-miña daben gaztediakin batera. Gitxi batzuk ixango gara bearbada, tamalez, zaletasun orreik doguzanak, baiña zerbaiten asi bear gara, iraun bear dogu. Eta onetarako erabagi sendo batera eldu bear: alkarren arteko kezkatxuak alde batera itxi ta zerbait ongarri egitera. Ez, gurartean buruba erakutsitarren bakarrik dabiltzanak ez! gazte gogaitsu kementsuak bear doguz, baiña, batez bere zintzoak, eskugarbiak. Banatzale diranak barriz, alperrik dagoz gurartean; orretara jokatuten dabenak, jakintza ta Erria'ren etsaiak dira, ez-dogu bear orreklakorik. Laster, onetariko izpar onaren barri emon nai genduke.*

JANTZA BARIK!—*Beste jai-areto barri bat igiri dabe errian ta bitartean erriko enperantzan erri-jantza edo jolas barik geratu gara, aldi ontan gogoratuten gara aizetan, jolastoki sarratu orretan lako lizunkeri barik gure gaztadia jolastuten zan dantzaketa alai aregaz, bertan izaten zan giroak beste alaitasun bat eukelako. Beraz, dana da ixeltasuna.*

LANGILLE ARAZOAK.—*Barriz gagoz asarre langilleok, tarteko itunbeak, konbenioak dirala-ta. Ain da gatxa izan be langille gaztijok eretxi bateratutea! Batezbere lantegi batetik bestera lan-sari aldeak dagozan ezketiño. Azkenez, aintzakotzat ba'daukagu azken aldian gauza guztiak euki daben garestikera, gaitzago izango da orain itxiko daben lansari erkiñan igoeraz danok eretxi batekoak izatea, danok dakigunez, salneurri jasoera danontzat izanda bardiña ta, lansaria be bardiña izan bear leuke, baiña, ezta orretara, euneko onenbeste batean, batzuentzat ja soera andiagoa dalako beste batzuentzat baiño. Beste aldetik, batzuei ez dautse ardura lan-saria igon ez-arren, naita gero itoalean ibilli orduak sartzen, nekez dabillen sendiari aurre emoteko, beste asko Europa'ko beste laterri batzuetan lez lan-ordu gitxiago eta biziera bardiñagoa lortu eziñik gabiltzazen bitartean. Ikusiko dogu zer ongarri lortuten dogun burruka ontatik.*

KIROLAK.—*Lerro oneik idatzitean, Baskonia ostikolari idea, bere maillakoan artean, irugarren aurkitzen da, altsuen antzera. Ori ta guzti be, umilla dalako-edo izparringiak oso gitxi edo ezer be eztabe eurokaitik idazten. Dana dala, basauritarrok da dogu gaztetxu onetan itxaropena, gogotsu ta, zelan ez basauritarrak izan ezketiño! kementsu aldeztuten dabelako Basauri'ko bazkun onen margoa. Aupa Baskonia!*

KOLDO

Oarra.—Koldo'ren idazlan au artu dogunean jakin dogu, bere ama kutuna gaixorik txarto aurkitzen dala, beraz, otoi bat irakurle, aldi estu ortatik urten daien, Jaunak nai ba'dau. Agur

Arrasate

ANTZI' RI.—Orain egun batzuk irakurri izan al-genuen AGUR onetan gure erriko Pantzeskatar lekaime Antzi'ren idazlan bat. Lendik ere oso ezaguna dugu, batez-ere «GOIZ-ARGI» aldizkari ederrian idazten ditun lan mamintsuengandik. Uste dugu Aita Demetrio'k ez dula izango azkenenengoa aldizkari onetan eta eskatzen dautzugu jarraitu dezazula AGUR ontan idazten eta ziur gagoz beti izango duzula tokitxo bat zeure idazlan jakingarriak agertzeko Aurrera Garmendia jauna!

ANTZERKIA.—Errege bezperan izan genun Pantzeskatarren eleizan antzerki jai polit bat. Bertan aritu ziranak izan ziran. Arantzazu, Arrati'ko erri politeko antzezlari trebeak. Antzeztu zutena «Gabon Ikuskizuna» deritxon antzerkia. Antzerki onen egillea Pedro Barrutia, Aramaio ko semea ta orain dala 250 urte gure erri ontan eskribau izan zanak idatzia. Antzerki onen gaia oso egokia da Gabon jaietan egiteko. Lan polita egin zuten antzezlari trebeak eta atsegiñez urten giñan an izan giñan ikusleak. Baiña nire iritxi apalean garbiketa apur bat egin bear litzakela uste dut euskera aldetik erderazko itz batzuk kenduta eta ez luteke ezer galduko bere baliotasunean. Arrati'ko «Oiartzuna» abestaldeak ere ederto lagundu eutson.

URTEKO GORA-BERAK.—Gure Parrokian igazko 1971 garreneko urtean gora-bera onexek izan ziran: Jaiotzak; 369 eta onein artean 197 neskatilla eta 172 mutiko. Illak: 127 eta eurotan 64 gizakumeak eta 54 emakumeak. Eta eskontzak berriz: 92. Ikusten danez errian jendea ugaritzen dua eta olan jarraitzen ba-du etxe barriak ugari egin bearrean izango gera.

«DANOK» ABESBATZA.—Erregen egunean saio ederra izan zan «Gurea» antzokian. Bertan abestu ziran abesti ederrak oso ondo arturik izan ziran. Abesti onen artean geien txalotu ziranak «Alleluya» Haendel ena eta. «Gran Marcha de Tanhuser», Wagner'ena-Baiña, bereziki, ainbat txalo izan zuten «Zeruko Deia» L. Aranburu'renak eta «Euzko Irudiak» J. Guridi'renak. Azkenez entzule guztiak zutik jarrita «Agur Jaunak» abestu zan. Arro egon geinke arrasatetarrok olako Abestalde ederra dogulako, onek erakusten dualako errien kultura gogoaren ezaugarririk onena. Eskerra emon bearraren gagoz «Danok» Alkarteari eta batez ere Zuzendari eta erakusle dan Arzamendi'tar Yon ereslari jakitun eta langille purrukatuari. Jaun onek aor zelako lan ugaria eta txukuna egiten duan erri eta kultura aldez. Eskerrak Arzamendi jaunari eta Zorionak!

ERIOTZAK.—Aspaldian lagun asko doaz gure artetik eta emen doazen guztiok euskeldun zintzoak izan dira beti: Uribeetxebarria' tar Gaizkane, Iartza'tar Karla, Okina'tar Miren, Billar'dar Tiburtzi eta Bolinaga'tar Andere. Euren senar edo emaste eta seme-alabe guztiai neure atsekeabe biotzkorrena. Goi an Begoz.

UDALAITZ

Tolosa

VATICANO'TIK EUSKERAZ? — *Auxe jakin degu, eta iturri onetik jakin. Kardaberaz taldearen ardurapean alkarrizketak asiak dira, euskal irratsaioak eman ditzaten, eta dirudianez ba-daude zenbait arrazoi ontzat emango dutela Erroma'n, esateko. Gure izkuntzak bide zabalagoak artuko ditu au egiztatzen ba'da. Eginkizun onetan dabiltzanak lortu dezatela beren naia, auxen opa diegu.*

DOTACION DE ARTE CASTELLBLANCH.—*Erakuntz onek bidali ditan Eguberri-Txartelean onela irakurri det: «Dotación de Arte Castellblanch - Dotació D'Art Castellblanch - CASTELLBLANC EDERTI - SARIA - Dotazione D'Arte Castellblanch - Dotatión D'Art Castellblanch-Ausstat Von Art Castellblanch-Dotation of Art Castellblanch».*

Anitz esker gure izkuntzaren oroiz izan diralako.

GABON ZORIONTSUA. — *Goiz-goizetik euskal margoz jantzia azaldu zitzaigun. Eundaka eta eundaka txiki eta aundizko konta eziñalako talde pilloetan alaitu zituzten goizetik gure kale zaarrak, Ikastol eta Kolejioetako aurrak. Orko eta emengo taldetxoak, guztiak baserritar jantzirik. Inulabarrean Erri-Abesbatza, zortzikoa joaz. Eta «Leidor» abestaldea, Udaberri taldea, Uzturre mendizaleena, Coral Frantzizkana, Eskolapioak, Monja kolejioetakoak, eta abar... kristauaren poza agertu ziguten beren abesti ederraz, eguberri abesti ederraz. Nen bizi guztian ez det orrelakorik ikusi. Egun zoragarria benetan. Zein ederra dan gorrotoa menderatzea! Beste txakur batek zaunk egingo liguke gure biotzak egunero ba'luteke Gabonetako zabalera!*

URTEBERRI ASMOAK.—*Gurea zaantzen jarraitu nai degu. Eta ba-dakizute... pakez datorrenari nagusiak ongi-etorri; bestela datorrenari zakurrak zaunk. Badaezpada! Danok gaitezen ba pakean!*

DEUN AGATE.—*Gabonetako edertasuna ikusirik askok izan dute oroitzean Deun Agate eguna. Luzapen bat emango ba'genio egun orretaraiño... Uste degu erriaren naia ikusirik, taldeak gertatzen joango dirala egun orretarako.*

MEZAK EUSKERAZ.—*Irakurle askori gertatuko zaiote Tolosa inguruan meza entzun naiean, ta meza orduak noiz diran jakin ez. Asmo onetaz emen dijoazkitzu euskerazko mezak nun ta noiz diran:*

Sta. Maria'n: *Igande ta jai bezperetan: 10,30. Igande ta jaietan: 6,15; 8; 10; 11,15.*

Sakramentinoak: *Igande ta jai bezperetan: 20. Igande ta jaietan: 6; 7,30; 10,30; 13.*

Franzizkotarrak: *Igande ta jai bezperetan: 19,15. Igande ta jaietan: 7; 8; 10; 12 eta 18,30.*

Korazonistak: *Igande ta jai bezperetan: 19. Igande ta jaietan: 9,30; 11,30; 13,30 eta 20,30.*

Eskolapioak: *Igande ta jaietan: 8,30 eta 9,30.*

Arramele'n: *Igande ta jaietan: 11,30.*

UXOLA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN
JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA
ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT
BOUTIKEAK

Martín Aldazabal
TENDERIA, 3

ZESTUA

AMADO IL ZAIGU.—Gure errian izan genduen guda ondorenetik, Bidasoaz bestaldean, au da; sasi-muga orren bestaldean bizi izan zan Amado, il zaigu! Larogeita lau urterekin, Endaya'n il ere.

Bere illetara joandako azpeitiar eta zestuar anitz bildu giñan. Illetok, Endaya-Ondartzako elizatxo polit eta txukunean izan ziran. Apaiz bat aldarean, elizatxoa ia dana betea, bere emazte ta seme-alabak aurrean, eta meza santua ta otaitzak Prantzeraz eta euskeraz.

Prantzeraz ezin genduan jarraitu, baiña abadea euskeraz mintzatzen asten zanean oso erraz jarraiturik, dena ulertu genduan. Illetak bukatu ondoren, eta Amado zanaren gorputza agurtu ondoren, oitura dan bezela solasari, alkar-izketari asiera emanaz, auxen esan genduen: «Batasuna, alegia, euskeraren batasuna; elizako liturjian egiña ziok, zerbait beintzat, oinkada bat emana ziok, eta oinkada bikaiña gaiñera».

Batasunerako daukagun oztoporik aundiena (nere ustez beiñepean) auxen degu: Kalean euskera gutxi entzuten dala, gutxi erabiltzen degula, gure errian beintzat gero ta atzerago. Asi gaitezen euskera mintzatzen, denok itzegin dezagun, orduan zalantzarik gabe, erriak nai duen batasuna iritxiko degu.

Amado gure lagun zaar zintzo; lagundu zerutik, Agur eta egun aundira arte.

AZPEITIA'N IKASTOLAREN ALDE JAI-ALDIA.—Azpeitia'n Ilbetzaren arratseko 8'tan Soreazu antzokian, Loyola Ibarreko Ikastol-alkartearen alde eratu zuten jai-aldia, oso bikaiña izan zan. Iruña'n lenengo sariak irabazitakoei, Azpeitiko errediza-taldeak eskeiñitako irabaz-oroigarriak banatzea ere, jai-aldian egin zan. Jai-aldiak bi zati zituan, eta Iriondo'tar Joxe Mari aurkezlari.

Lenengo zatia bertsolariak bakarrik osatu zuten: Lazkano, Lazkao-txiki, Lizaso, Agirre, Garmendia ta Gorrotxategi. Ta zoragarri osatu ere!, zer esan ez dakigula utzi giñuzen.

Ur ugariko iturritik antzo datorzkie, eta beti alduten bertsorik onenak eskeintzen dizkigu te. Geure-geure ditugun bertsolarieri, arduraz begiratu bear diegu, eak bait-ditugu, gure erriko oiturak eta batez ere euskera bide onetik daramatenak.

Bigarrenean, Egan-taldeak asiera eman zion. Saldias abeslari bakar bezela, ez nion aspalditxoan entzun, baiña Xabier'ek asko ikasi du, bai abotsez eta eskolaz.

Egan-taldearen ondoren, Madina'k abestu zuan; Iruña'n bigarren saria irabazitakoa ere abestu zigun. Madina'ri, abeslari onena bezela, lenengo saria eman zioten. Ez da erraz obeto abesten.

Saria jaso zutenak, abeslariak bakarrik etziran izan. Iriondo'tar Koldo'ren izkiari ta Mikel Mari Azpiazu'ren eresiari, au da: Iruña'n lenengo saria jaso zutenak biauek izan ziran. Beraz, Iruña'ko sariak Azpeiti'ra ta Azkoiti'ra etorriak ditugu. Pozgarria benetan, zorionak! Eta azkenik bukatzeko «UNAI» irukoa. Beste abestien artean, Iruña'n lenengo irabazi zutena abestu ziguten. Egia esan; zuen abestien argiak diztikor jartzen gaitu.

Erriaren erantzuna aipatu gabe ezin ninteke ixildu. Erantzuna bikaiña izan zan, antzokirako sarrerik gabe askotxo geldituaz. Ikastolaren egoera ikusi-ta bertsolariek esan zituztenak entzunda; antzokitik kezkatsu irten giñan. Ikastoletan lanean ari diranak ikusiko dute noski, batetik diruaren laguntza-ofizialik ezak, bestalde andereñoek ordaindu, etabar... Goizean jaikitzean lenengo kezka ta burutapena auxen izango dute. Dirua nola inguratu?

SAGARZAZU'TAR JOSEBA

IDAZTEGI~IRARKOLA
EUZKERAZKO~IDAZTIAK
VERDES
CORREO.7 ☎ 212903
BILBAO-5

Mungi

IKASTETXEA.—Mungiar guztiak, zabal-zabal egiñik, pozez ikusten dabe Mungi'ko erriaren aunditzea ta bizi aurrerapidea. Gizonaren berezko garra da au, ta egiz esan giñaike, lei egokia dala.

Erriaren azteak, berez dakars arazo barriak eta sakonak. Onek be gizona azi egiten dabe. Oraingo aldia mungiarrentzat ba, lantsua da, baiña zurtasunez ta kementsu jokatu ezkero, ongarria, ta ementxe geratuko da gaurko gizonen ondorena ta izena betirako.

Aunditze onek, egiz, mungiarren buru ta indarrak bizkortu ditu. Ta adi-bidetzat bigarren maillako eskola sortu barriak Legarda aldean ditugu. Etxez eta lekuz, eguzki begian, gauza ederrak dira. Orain, ara doazen gazteak artuko al dabe jakituriaren argia.

ETORKIZUNA.—Egiz, gaurko neska-mutillak izango zaree, biar, maisu. Jakituria ta gizontasuna zuen soin barri biurtu egizuez. Zuek izango zaree, gero, ondorengoen argi ta gatza. Gure Euskalerriak merezi ditun gizaseme argiak.

Erri sendo ta zentzunduna izatea nai ba' dogu, gure jende ta izakereari begira jokatu bear dogu. Sorakerizko goratzea ez dana. Euskalerriaren astuntasuna urteen buruan, ondo ezaguna ta lotsaz artua izan da lur biribillaren inguruan.

Orain, gure aurretikoak ezer egin ez ba' lebe bezela, gu ez gara asiko gure jatorrizen izerdiz irabazia, gitxiesten. Aurretikoak emon euskuen izen dirdaitsuari, nundik eta zergaitik daukagun, ondo ikasi, ta bultzada barria emon bear dautsagu. Erri ontako gazteak, batzuek esku-lanaren bidez, ta beste batzuek burulanaren bidez argia zabaldu ta aurrerapidea sortuko dabela uste da. Gure euskal berbeteak be, zuzena danez, bere tokia izango al dau ikastetxe onetan. Euskal jakintza edo kultura maite dogula agertzeko era egokia. Argi ederra artu ta zabaldu giñaike, geure etxearen barri jakin ta ondoren, bere jakituria edatzeagaz.

JOLAS-TOKIA.—Ikastetxe onen ondoan, gazteak futbolean egiteko, zelai ederra egin dabe erriko buruak. Zelai au, len «Legarda» eritxon tokian dago. Ori dala-ta, erriko jendeak «Legarda» izen egokia esaten dautsoe futboleko zelai oneri. Orain gauza ederra izango litzake, Artetxe ta Zarra'ren gisako futbolari-tegi bat agertzea. Gazteak, aurrera! «Legarda» zelaia zeuena dozue olgabiderako. Gizontasuna, iñoz ez dedilla galdu gure jolasetan.

Izan bere, nora goakez, gizonaren lenengo arpegi patxada jatorra barik. Izkuntza garbiak, nungoak eta zer geran agertzen dau. Gureak, geu jasoko gaitu dagokigun gizon jakintsuen gaillurrera.

MUNGIARRA

Arratia

Zeanuritarren barri-emoille zolia, Gorbetarra, Iurre'ko Garbe'n izan da, ta biotza oiñetaraiño jatsirik Urkitze'ra igon. Oraindiño osotu ez dan auzogiko lenen etxeak diru-ametsez jaso ziran, eta beingoz eta aguro atzerritarrez bete.

Kanpotarren etorte ugariakin pozturik eta diruaganako txibizkeriak erazota, besteen batzuk bere, etxegintza amorratuan asi ziran, lendik lodi ta indartsuak ziran sakelak gizenago egiteko. Eta errikoentzat baiño asko geiago jaso ziralarik, arrotzak jabetu ziran auzotegiakin. Etxekoen diru-egarria, bizitzera obearen billa etorri diranak eta euskaldunon euskal-izaterik eza izan dira Gorbitarra'ri biotza oiñetara jatsi-arazi ta erdera-bidean Garbe jarri dauskuenak. Gora, ba, biotzak, ez gaitezan okildu, ta ekin Erriaren onerako izango dan arloari, saillari.

ARANTZATZU.—*Paitarretan bustiriko ogi-kuskurrakin indarbarritu ondoren, osasun sendoa ta adiñez gazte izan dan bizidunaren odolagaz, sutaldeko aiea, lau ormak eta sapaian dindiliz egoten dan argiraiñoko guztia gorritu izan dau, Zeanuri'tik etorrita, Irurieta'n bizi dan morroskoak.*

Ukondoraiño eskuak odoletan eukazan gizona, emazteari laguntzen asi zan. Alangoen batean, nekatu ta asperturik, erdi asarraturik eta besoak luze guztian zabaldurik, inguru guztian ezan txipristiña besterik izan.

Etzaitez larritu arratiar irakurle. Lentxoago il eben txarriaren odola izan zan eta odolosteak egiten ari ziran une aretan. On egin begie, odolki ta txarrikiak, Irurieta'ko txarri-eztaietan izan diranai, eta kalterik ez, izan ez garenoi.

EUBA'TIK.—*Urte barriak, biziera ta bizitasun barriak eskatzen dauz-eta, al daunak al dagi, ta Bernagoiti'ko Maritxu'k eta Etxebarri'ko Iñaki'k, orixe bera egin dauskue. Amaren antzeko zoli-bizkorra dirudin alabatxo pospolinkia izan dabe. Ugutzizena, Miren Amaia.*

Zorion guraso barriai, ta Bernagoiti'n amaika laztan txeratsu ta Etxebarri'ko ama apatzaren amaika mosu-igurtzi gozo izango dauan aurrari, umetxuari, osasun on!

LANDAJUEULA'TAR A.

Altzatzu

«AGUR»-en agertu ziran, leenago be, Altzatzu'ko barriak: «Gure-Etxea» gazte-taldea, zelan sortu zan; eta yoan iraillaren 19'an, zelan ospatu eban «euskal-umeen eguna».

Oraingo onetan, Gabonetan ta Urte-Barrietan, Euskeraren alde zer egin dauen, azaldu gure neuke.

OLENTZERO.—Gabonillaren 24'n, illuntzean, «OLENTZERO» atera zan erriko karrika zear, yakiña «Gure-Etxea» bazkunak antolatuta.

Ama Maria ta Aita San Jose (erriko neskamutil gazte bi) gurdi ganean, goroldio ta erramu ta atxen artean. «OLENTZERO» bizia. Ta irudi polita ematen zuan, edertasunez betea. Eta ondoan txistulariak ta abeslariak ta dantzariak. Danak «Gure-Etxea»koak...

Eta, danen-danen aurretik, txori-malo legezko gizon bat; edo gizon baten antzeko txori-maloa.

Abeslariek, dana ta danean, Euskeraz abestu eben. Nork edo nork esan ei zuan, emen Altzatzu'n kanpotar asko dagoela (kanpotarrak dira izan be, erdiak baiño askoz geiago); ta orregaitik erderaz, be kanta bear zala.

Orduan «Gure-Etxea»ko gazteek: «orreik, kanpotarrak, bai, leenago kanpotarrak ziran; baiñan orain, emengoak dira; ta guk ez dogu «diskriminaziorik» egin bear, «integrazioa» baiño».

Eta emengo bertakoakaitik esaten ez dogun lez, erderaz ba, egin bear dala, naizta asko ta asko egon, geienak, Euskerarik eztakitenak, bardin «kanpotik» etorri ziran orreik, orain, emengoak diran ezkero, erderaz kantetako arrazoirik ez dago.

Eta dana Euskeraz ta Euskera utsean abestu eben.

«OLENTZERO»ren agerraldia, erri barrena, oso atsegin ta egokia yazo zan.

UMETXOEN NORGEIAGOKA. — Berreun ume baiño geiago aurkeztu ziran norgeiagora. Geienak taldeka; bakoizka askoz gutxiago. Baiñan beti be, bai taldekakoak, bai bakoizkakoak, bitzuek, Euskeraz be kanta asko abestu eben, ez bakarrik erderaz.

Eta emondako sariak, be, bardin izan ziran euskerazkoentzat be bai.

Benetan une pozgarriak umetxoen une areik...

ABESTIAK.—Naparroa'ko Aurrezki kutxak, yaio zanetik, 50 urte bete dituala-ta, yaiak antolatu ditu, Naparroa zear. Emen Altzatzu'n, urtarrillaren 2'an, izan zan.

Iruña'ko Morondo yaunaren «Coral de Cámara» etorri zan; ta ordu biko entzunaldi eder-ederra emon eban entzutera.

Abestietan erdiak gitxienez, Euskeraz; ta ondo baiño obeto abestuta. Entzuleek eskusarta beroz txalotu ei eben abeslari-moltzoa. Bengoetxea-Zinean izan zan.

Ta azkenean, yende guztia zutunik egoala, abeslariek «Agur, yaunak», abotsetara, abestu eben.

Guztien gogoa asetzeraiñoko eder-ederto atara zan.

* * *

Naparroa'n, be Euskeraren zaletasuna zabaltzen ta indartzen doala dirudi... Sua, sua bear da.

Eta gaiñera, Altzatzu au, ingurumarietan, egierarik andiena dauena da. Eta emen asi ezkero Euskera pizten, piztuera ori Sakanako errietarako ederto etorriko da...

Beste bat arte Jaunaren baitan.

YURRE'TAR YULEN A.

Zeanuri

GORBEIARA.—*Negu-aldi onetan bere, naita otz, edur, izotz eta guzti, mendi orretara igoten ainbat lagun ikusten doguz. Emengo gazte bi —apaizak eurok— Gabon oporraldietako egun baten Gorbeiara, Kurutzera-giño igon ziran, eta andik iguruak ikusten ibilli ei-ziran. Baiña orreik ez ekien antziñeko esakun zar a: «Santa Lutzietan gaube da luze; San Bernabetan egune». Ori dala-ta, gaube egin yaken igarri barik, eta txarto ibilli ei-ziran etxerantzakoan edo berantza jatsitean, Sanburu'tik bera, eskerrak artzain baten laguntzeari.*

Emen, galdu egin zirala zabaldu zan, baiña dana orrela izan ei-zan.

EZKONTZEA.—*Emengoa, Errapel, eta bilbotarra Inozenzia ezkondu dira, ta erri onetan bizi-ten gelditu. Emazteak ez daki euskerarik, baiña gogotsu diardu ikasten. Zorionak biotzez!*

ELEIZPEKOARI.—*Ez al-da ba izan ordua, Eleizan bardintasun eta errazoiz gauzak bear dan lez jartzeko? Nik, baietz uste dot.*

ERIOTZAK.—*Gure auzotar ona ta zintzoa zan Luziano Iturbe il da. G. B. Ta erri onetan igaz il ziran 29'ak bere, danak, betiko bakean begoz.*

GORBEIATARRA

Ibaizabal Aldetik

URTE-BARRI ON!—Orixe opa dautsegu AGUR'en irakurle guztijei. Urte-barri on bat.

GALDAKANO. — Azkenengo urteotan, ainbat txaide ederto baten apainduak izan ziran, baiña, batzuk apurtu diralako ta beste batzuk iñoiz bear dan lez apaindu ez diralako, apartuta aurkituten dira. Esate baterako: Urreta'ko auzune guztiak eztau urtera egoki bat euki erri-barrurako, Elizara, Udal-etxera, enperantza-edo juateko. «Señorío de Vizcaya» txaidea etxegintza dala-ta apurtuta aurkitzen da ta txaide ontatik Zamakoa'rakoa, «Esteban Ibarreche»n «txaide» noiz edo noiz izango dana, guztiz zikin dagolako. Zorionez, baiña, gogor ezpada be, polito baten apaindu dabe, ta pizkat poztu gaitube bertatik sarritan igaro bear dogunok.

Beste zerbait esan gintzake Ganguren mendi aldemenian dogun Ergoyen auzuneko bideagaitik be. Auzune ortan amaika sendi bizi dira beste ainbeste basetxetan, ta bertara igoteko bide bat bakarrik dabe egoki xamarra, baiña, ez bear litzaken besteko egokia, eztalako iñoiz-be bear litzaken lez apaindu. Orain ainbat urte, auzune artako Kastillo'tar Peli (G. B.) zanaren bitartez, ta eskarrak berari, arri lodiz pizka bat apaindu eben, baiña, geyago ez yakolako beste ezer egin, gaizki aurkitzen da, derrigorrez berebil batek igon bear ba'luke ,gaitz izango leuke «yip» edo «jemece»n bat izan ezik. Beraz, ondo egongo litzake aintzakotzat artutea auzokide orrein eskabideak, bide zuzenetik egin dakoak, beste auzotegi batzueri egin yakoen erara.

LARRABETZU'N.—Berton, Larrabetzu'n izan nintzan Gabon ostian berton doguzan sendikide maitekor batzuk agurtuaz, ta bertoko gaztediak eliz aldamenian daben batzartokira sartu-nintzan, gazte tartean dodazen adizkide batzukaz itz egitarren, ta; egiz, ez-yatan damutu, atsegiñez ikusi gendubalako jai oroigarri ortarako gaztediak gertutako euzko idazti, aldizkari, «disko» lauki ta beste jakingarri ta ezaugarri askoren erakusketa bikaiña, guztiz ederto antolatuta; edozein euzko semeren txalorik beroenak irabazi daikezana ta, beraz, gureak be eurekaz dabez.

Larrabetzu'ko gazteon artian ba-dagoz euzko gayetan egoki ezita aurkitzen diranak, baiña, beste gazte askoren antzera, beste bide argiago «edo zuzenagoren» batzuk aurkitu nayan dabiltz, baiña, gure ustez ezdago euzko semeontzat bide zuzenagorik «Abando'ko Arranoak» irakatsi euskuna baiño, beste guztiyak, zein eskoma zein esker aldekoak bide, zidorrak baiño ezdiralako; sasi artean lez korapillotuta geratutako lakoak edo lupetz tartean lez lizunkeriz da loikeriz zikinduta geratutekoak baiño. Orregaitik beste sarritan lez esan dautsegu; euzko gaztedia, begiratu nondik zabiltzan da nora zoyazan.

BEDIA'N.—Txaunburu barria dabe Bedia'n, apaiz jatorra ta Erri-zalea, bata bestiaz nastu barik bakoitzaren, Elizea'ren ta Erria'ran eskubideak kementsu aldeztuten dakiana, orain arte abadetzan egon dan errietan erakutsiten emon dabenez. Eleiz-gizona lez zintzoa ta bertatik atera be gizonkiro jokatuten dakiana. Orretariko apaiz garbi zuzenak baiña, atzamarrez zerbaiterako izentaute dagozanai ez-yakez atsegin izaten onein morroitzarako gertuak ez direlako. Orretara izanik, zuzendu dira apaiz egi-zale ori lotsatu-ta aspiratu gurean «jauntxu»ren batzuk, baiña Erria'ren aurrean zikinduta, loituta geratu diranak izan ei-dira, ta ez txaunburu Erri-zalea. Beronentzat gure bostekoa.

BASA-JAUN

Bilbao

UME ZINEMAK.—*Lentxoego baten Bilbo'ko Zine «Actualidades» en uneentzako zine egoki bat izan genduan. Guraso edo neskameekaz aurtxoak ara bertaretu oi ziren ta danok pozik; Denporalditxo bat dala baiña, umeentzako gertaturiko egitarau garbi orreik kendu ebezan, gizarte edo zine sozial deituriko zine filmak gertatu, ta beste irepazbide bat eurentzako lortu. Ta nik diñotena: Ez al daukez bazkide au asotu oi daben orok beste ainbat eta ainbat zinema Bilbo'n ta Bizkai'ko lurralde osoan, danak euren kutxetan txindi ugariak batu oi dabezenak, ta umientzako dan zinema bakarrak soillik porrot egin dautse? Arritzekoa benetan gertaturikoa erabaki orregaz. Gure aur ezibakoak umezuriz lez geldi-azo ebezan.*

Egunotan, ala ta be, Gabonak dirala edo, Bilbo'ko zinema banaka batzuetan aurrentzako guztiz egokiak dirudien pelikula garbiak, umeak ezi ta eskolatzeko aiñakoak izan doguz. Luzaroko iraungo ete? Orretan gure kezka.

Pozteko zera egi-egitan gabonetakoa. Ordua da bai gure ume kondoai indioarren burrukak ta izkillu usaindun gaiak (lizunkerizkoak jakiña, nozik beinga be eurak susmatu arren, alderaturik) diñotenez, indio burruka oiek ta abar... guztiz kendu edo alboratzen ez-baiakez be; bai urrut-ikuskiñetan baita irratisaio ta zineetan ere biotzalaitasuna damotsen ta era batez kristautasuna ta bizibidea ezari ezarian euren samurtasunaren neurri egokian zuzentzeko, bearrezkoak jakezan gaiak, eskeintzea. Umearoa, gaztearoaren eta gizaroaren azia da. Ondo edo txarto ezi ta eskolatzen ba'da, gure errua da. Gurea erantzunbearra.

Umea ez da txatxu, meko ta gaixo itxurazkoa izan bear. Jolasa bear du, baiña bere sasoi bereziko jolasa. Ez igaro barri diran Errege-Egunetako esku-burdin, sutarma ta azagak soillik darabiltzanetarikoa.

Kirol zalea azi bear da esku-pelota, oztikopelota, zelai zabal, mendi txiki bedartsu zalea. Jolasak bere izakera osotzeko laguntza damotso, ta izakera orregaz bizi guztian iraungo dau. Jolasa bearrezkoa ba'jako ez da bere bizi-muga, bitarte bat baiño. Gizon izatera eldu bearra du.

Ta ortara, gaur zinemakaz diardugunez, zinema onak lortu-azoten dautso aspaldi bateko, baiña beti gaurkotasuna daukon, esakun mamintsu au «Atsegin emonez eskolatu». Lan luzea danez gaurkoz amaitzera noa. Benetako gurasoak ba'zarie alegindu zaiteze ondo be ondo zuen seme-alabak eziaz biarko gazte begiko, baliodun ta kristautasun bikaiñezkoak izan daitezan; ta urteak aurrera gizon ta emakume onurazkoak, Euskal-erriak ta gaurko gizadiak bear dituzan tayuzkoak.

ARREGI'TAR JOSU

Boutique
Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tendería, 15 eta 16
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak

EUSKAL ERRIKO GIZON OSPETSUAK

IXAKA LOPEZ MENDIZABAL

Larogei ta amabi urte irixtea, ez da ez, edozeiñek kontatu dezaken kondaira. Bizitza luze orretan jo ta ke lanean aditzea ere, ez da gizon askok egin lezakena. Gutxiago oraindik, gizon onen lanak, ze garrantzi duten, bi lerroetan adieraztea.

Lopez Mendizabal'ek beraz, ori egin du; adiñez aurrera abiatu, eta urte luze oietan lanean alegindu.

Berarekin iru orduko alkar-izketan, egon naizen bitartean; ikusi det, ondo ikusi gaiñera, gazteok zenbat ikasteko gauden oraindik.

R.—Ixaka, esango al didazu nola izan ziren zure asierak?

I.—Begira, amabost urte nituela jun nintzan Deusto'ko ikastetxera; bertan, filosofia ta letrak ikasten jardun nintzan. Deusto'n iru urte igaro ondoren, Madrid aldera jo nuen, ta an berriz milla ta betzireungarren urtean amaitu nuen derecho'ko karrera.

R.—Tolosa'n jaioa zaitugu ez da ala?

I.—Ori da bai. Nere aita zana berriz, naparra zen. Oraindik gogoan dut berak esaten zidana: «Seme, ik gutxienez iru gauz egin bear dituk bizitza onetan: Ibilli ta bazterrak ikusi, izkuntz asko ikasi eta bizitzeko ilusioa izan». Orrela leku askotara iritxi izan naiz; ona emen batzuk: Inglaterra, Francia, Belgica, Alemania, Italia, Grecia, Suiza, Turquia, Israel, Jerusalen... Ibillaldiz kanpo, amairu izkuntz ikasiak ditut.

R.—Asko ibillia zaitugun aldetik, eta izkuntz asko ikasia izana. Beste galdera bat egin bear dizut. Zein gizon ospetsukin izan dituzu artuemanak.

I.—Zailla izango zait danak gogoratzea, alare batzuk aitortuko dizkizut: Ramon Menendez Pidal; Kataluñako idazle dan Joan Corominas, Pedro Bosch-Ginpera, Mejiko'n arkitzen den gizon ta idazle sonatuena; Henri Brenil, Frantzia'ko historiadore sonatua; Norbert Tauer Txekoslabakiatarra; azkeneko onek, nerekin ikasi zun euskeraz mintzatu eta idazten.

Lopez Mendizabal'ekin alaba bat arkitzen da, eta gure alkarrizketan bere laguntza interesgarria eskeintzen dizkigu; datoak emanaz ta abar. Alare, gizon onen burutasun edo oroimena apartekoa da.

R.—Zenbat izparringi edo errebistera bidali izan oi dituzu zure lanak?

I.—Milla betzireun ta amairugarren urtean, gutxi gorabera sortu zan, Euzkadi izeneko izparringi bat, ara bidali izan oi nituen nere lanak; gero Tolosa'n sortu zan beste aldizkari bat, bere izena: Euskal-Esnalea, bertako zuzendari bezela egon nintzan, gero baita ere, neure lanak bidali izan oi ditut beste abetara: Egan, Munibe, Revista Internacional de Estudios Vascos... Euzkadi izeneko izparringi orretan zuzendari bezela Engracio Aranzadi «KIZKITZA» zen, eta bertan ere «KIRIKIÑO» sonatuak lan egiten zuen.

R.—Zenbat liburu argitaratu dituzu?

Galdera oneri erantzuteko, bere alabak ematen dizkit liburu batzuen izenak. Ona emen batzuk: Aritmetica vasca, euskeraz; «Xabiertxo», aurrentzako liburua. Onako liburu au saritua izan zen bere garaiean, Cantabria, Fueros de Guipuzcoa, ¿Quiere usted hablar en euskera?, El euskera, Nekazaritza, El pais vasco, Martin Txilibitu, Zenbakiztia, Otoitzak, Umearen laguna, Etnologia de apellidos vascos...

I.—Orain beste bat moldatzen ari naiz, laister argitaratuko da noski.

R.—Zure erritik urruti egona zera; zuk an egindako lanaren berri jakin nai nuke. Nun izan ziñan eta zenbat denbora igaro zendun, berriz etxera iritxi arteraiño?...

I.—Gerla bide zelarik, emendik Buenos Aires alderuntz irten nintzan. Bertan, ogeita zortzi urte igaro nitun neure erria ezertarako ikusi gabetanik.

R.—Denbora luze orretan ze moduko ekintzari jarraitu zenion?

I.—Buenos Aires'ko ikastetxe edo unibersidadean astero, euskerazko lezioak ematen nitun, bertako irakasle aukeratu ninduten ezkeroz. Bertan itzaldi ugariak eskeiñiak ditut, eta ez ikastetxe orretan bakarrik, baizik berdin, Montevideo'ko ikastetxean ere. Ogeita zortzi urtean lan orretan jarraitu nuelako, diploma baten jabe egin nintzan. Buenos Aires'en «Centro Vasco» izeneko alkartea eratu gendun, bertako lendakari aukeratu ninduten. Baita ere, Lagun Ona'n izenakin abesbatz bat sortu gendun, nik zuzentzen nuelarik. Azkenik nere lan batzuk egunkari batzuetara bidaltzen nituen, La Baskonia, Instituto Americano de Estudios Vascos ta abar.

Ikusten degunez, gure gizona ez da txantxetan ibillia, bere erritik kanpo, bere erriagaitik lan egiten ibilli da, ezin aaztu nunbait, bere sor-lekua; sor-lekua ere, ziur naiz, ez da errax aztuko beratzaz.

Jarrai dezagun aurrera, Ixaka'k oraindik ba-ditu-ta gauz interesgarriak esateko.

R.—Alkar-izketa onetan, azaldu didazu zure musika zaletasuna, Gai oneri elduaz, zerbait adierazi nai al diguzu?

I.—Begira, ni beti izan naiz abesti zalea, eta orrela iritxi nintzan organoa jotzen ikastera egun batez. Ba'dut gaiñera oso gauz «xelebrea» adierazi bearra. Urte artan Paris aldera deituak izan



giñen, Jose Izagirre nere lagun aundia eta biok. Hospital baterako jaso nai izan zuten, jai aldi bikaiñ artan biltzen zen guzia. Beraz an agertu ziren ludiko artista bikaiñenak. Euskalerri'tik biok giñan. Nik organoa jotzen nuen, eta Izagirre'k abestu, jakiña danez gure erriko abestiak ziren. Gure abestiak kantatzen ari giñala, Rusia'ko enperadorearen lengusua zen Princesa Ignacieff dantzatzen zun gure doiñuak zirela bide. Ain jendearen atsegingarri izan zen gure lana, jai-aldi eratzailleak, berriro ere, beste jai-aldi bat eratu zuten, gu ere tartean giñalarik.

R.—Jakiñan gaiñean arkitzen naiz gaiñera, abesbatzen batean ere abesten zenduela.

I.—Alaxe da, Nik abesbatza abetan, abestu izan oi det: Orfeon Pamplones, Orfeon de Bilbao eta Orfeon de Tolosa. Leku abetan agertu izan oi giñan: Cataluña, Mallorca, Toledo, Sevilla...

R.—Azkenik, zerbait adierazi nai ba' dezu, Euskalerri giroagaz, zure garai artakoaz esan nai det jakiña danez.

I.—Milla betzireun ta bigarren urtean, Ondarrabi'n alkartu giñan, Gipuzkoa'tik, Naparru'tik, Zuberoa ta Laburdi'tik, gure erriarengaitik zerbait egin bear zela oartuta, lanean ekiteko asmoakin, Gipuzkoa'tik jun giñanak iru giñan, Serapio Mujika, Juan Karlos Guerra eta ni. Bertan azaldu ziren gure erriko arazoak, estuasunak, lanak, naiak eta abar. Gerora erabaki zen Baiona'n illero alkartzea, eta urtean bein, beti leku diferentean jai bat moldaturik, euskal giro bat sortu arazi. Emen sortu zen ba lenengo aldiz, Euskal zaleen Biltzarra.

R.—Suiza aldean ere izan ziñan...

I.—Bai nere lagun zar Izagirre ta biok giñan orduan ere, eta congreso modura zen, bertan ludi guztiko erri tikiak biltzen giñalarik. Guk ere itzaldiak ematen genitun, gure erriaren nortasuna nolakoa zen adieraziaz.

R.—Lanean jarraitzeko asmoakin oraindik edo...

I.—Nik beti lanean jarraituko det, Ba dakizu, Jainkoak nai duen arteraiño.

Emen agertutakoa, zati tiki bat besterik ez da, Ixaka'k amaika gauz geiago esan zitun, denak ezin dira agertu ordea, zoritxarrez.

Tolosa'tik etxeko bidea artu nuanean, gauz bat bakarrik buruan: Benetan au duk Euskalerriko gizon ospetsua!

RAMON ZAPIRAIN

EREIN GOGO ONEZ

Urte barrian gara betiko on uste ta, itxaropenez. Gabon-gabonzarrak igaro doguz betiko poz-giro, itxura alaiez; betiko kistar gomuta ta izenez egiten doguzan eleizkizun ta, iai-aldi ospatsuakaz. Negar sunda ta ituntasunezko giro ontan be, sendi bakoitzan etxeko berotasun apalean, bere alegintxoak egin dabez Kristoren etorrerako Gau zoragarri ta ondorengo egunak alik ondoen igarotzeko. Etxeak apaiñago iaiotza apal edo ederrakaz; kale inguruak be, dotoretuak aunitz Zorion eskeintzen dabela gizonari, ta, zugatzak, nunnai, berein margoko argontzi ta zintzillikarioz... Bizitza. Bizitza adierazi, gomutarazten dauskun zugatz-sinboluak... Giro ontan murgildurik igaro doguz bai urteburuko egun pozgarriak ta, baita alegindu gara urte barriari oitura dan asiera ona emoten.

Nabarmenkerizko ian-edate ta ainbeste zalapartaz igaro doguzan egunok, benetan alaiak ta pozgarriak izan ete dira? Kistar-itxuraz apaindutako etxebarruak, eleiz eta, kale bazterrak egiazko kistartasunaren eredu izan ete dira? Nik ezetz uste. Guzurrezko egoera ustel, maltzur batean bizi gara. Oitura ederra ta egokia da ganera, bata-bestea agurtuz zorionak opaltzea... Zorionak, zorionak... Ortik gora zer? Biotz otz, epelezko itz, berba ariñak, besterik zer ete dira? Lagun urkoaz oroitu ete gara? Oroitu ete gara txiroakaz, oiñazta nekepean bizi diranakaz, ta, batez be, espetxeetan daukezanakaz? Oroitzen gara gure erriaren egoera samingarri, gure euskeraren azken-intziri, deadar eriopetu ta estuakaz? Ta, zer dagigu, lagun urkoaren, txiroaren, erriaren ta euskeraren alde? Itzak ta itzak, itz ugari, ori bai...

Bitartean, al duana ondo bizi da: askotxu batzuk ondo bizi dira ezeren kezka, ardura barik... Ondo ian, obeto edan. Bazkari ta apari ederrak. Ta... «nabillen ni bero ta or-konpon besteak gero». Gazte ta zar, ardandegirik ardandegi... Au, gure erriaren egoera tristea! Bai bata-bestea agurtuz, zorionduz, urtebarrian sartu gara. Ta mundua illun dakusgu. Alderdi guztietan gosea, negarra, zuzentasunikeza, gorrotoa... besterik, on gitxi dakusgu: guda zital ondatzailleak, laterri aundien onespen ta, babesean ta, iakiña... «Arrain txikiak aundiaren ianari...»

Egoera ontatik gauzak arteztzen, zuzentzen ezpadira gizona ta erriak, zelan bakean bizi? Indarkeria alderdi guztietan. Ta, gizonak indarkeriz eratu dabezan ioputasun, egitura estuetan esituak bizi gara, buruia iasotzeko adore, kemenik barik... Kate auek zelan ausi, apurtu? Zein bide artu...? Egindakoa desegin ta beste molde batzuk eratu? Zein molde izango eredu? Baltsakeriaren gizarte indarbidetuarena ala beste sozialtasun alderditsu batenak? Zerbait bear da ta, geldi egonta ez da ezer egiten. Norantza io? Gaztea egi billa dabil, egia nai dau. Ta, kezkatsu, zalantzaz diardu...

Ta, asko ta asko, indarzaleak zabaltzen dabezen esi berdiñetan iauziko dira. Ai, nun arkitu bearrezko dakon egiazko oiñarri sendo ta ongarri ori, bere amets gozuak osatu ta arnas artzeko? Etxean ta aldamenean, inadarra, guzurra, gogorkeria; maitasunik nabaitzen ezpadu, nora io, nogan siñistu? Egia, nun billatu ta arkituko? Atzerriko bideak onartu geiagoko barik? Ez! Begiratu daigun geurera, geure etxe-barrura ta asi gaitezan arakatu ta atonduz, etxea txunkundu, barritu ta etorbidetuz. Kendu txarkeri ta ustel usaiak; billatu erriaren muin, biotzean, bere izateari dagokion onura salbatzaillea; billatu or erriaren zuztar zindoetan, neurri on bateko elburubide anaitsu ta ederra. Ta, eutsi gureari neurri egokiz, ta, besoak ta burua laneratuz alegindu geure euskera, erria iasotzen. Buruzko ta biotzezko lana da, lan ori. Lan neketsu ta gogorra da lan ori, lan eskerbakoa. Baiña bearrezkoa.

Ez da naiko urteburu ta urtebarrietan zorionak opatzea... Zorionak, zorionak... Ez. Ez gaitezan bizitzan ezer egin barik igaro geure buruari bakarrik begiratuz. Gaitezan alkarkide, alkarren laguntzaille. Ez dagigun geure zorionari bakarrik begiratu, baizik besteakaz bat egiñik erein lur landu, ildo egokietan gure biotzetako azirik onena, zindoena. Oroitu etxetik at, erbestean, espetxetan ta, abar, errigogoz, etxe-gogoz bizi doguzan errikide ta lagun urrunduakaz. Ta, amaitzeko urte baketsu ta alkartuago bat opatuz gogora datorkit Xohana Torres, galizitar olerkarime ospetsuaren ta galtzerik ezer duen neurtitz begikoa:

«Diante de todos nos están os campos. Os sulcos non agardan. Sementémolos con mirada clara. Hai que avantar, deixemonos de historias. Tempos traen tempos: Ai daquel que se quede! Pola beira da iauga...» «Hai moito que facer».

Asko dogu egiteko egin nai ba'dogu. Ta, erein azi ona, erein, biotzez, esku zabalez...

Erein asmo zindo, gogo onez.

MUNIATEGI'TAR SABIN

GUDAK SORTZEKO ITUMENAK

Vietnam'go guda naiko ez dala, sortu zan Israel ta Egipto'koa. Orain ostera, India ta Pakistan. Ze ederki emen patxaran irakurtzen ditugun beoietako albisteak! Guda, gaur esan geinke, guziok bizkarrean eraman degula. Gurea ere etzan goxoa izan! Zeintzuk ez dute supritzen guda batean! Guziak noski.

Guda bakoitzean, edonungoan, izaten da bere bukaera. Vietnan'go gudak ordea, oraindik ez du aztarnik. Israel ta Egipto'k gutxiago. Bakoitzak bere arrazoiak izanik, zeintzuri eman arrazoi ori? Nik dakitena, ta beti ikusi ta irakurri deguna da, indarrez geiago dauden arroputzak, berak garaille ateratzen dirala. Ori, naiz ta galtzen duanak arrazoi izan...! Arrazoiak, munduko zitalen inguruetan ez du balio ezer. Arrazoi izan arren, indarra nagusi alde guzitan. Gudak, orain artean ikusi ta igaro diran lekuetan, erre, erail ta kizkali, ta berak izabazten dute. Alperrik ebilliko zera deadarka ONU edo beste batasun lekuetan.

Israel ta Egipto'ri utzi alde batera, ta esan dezagun zerbait azkenengo India ta Pakistan alderdietako lurretan gertatu ta gertatzen ari diranentzat. Zer ikusten degu bi oieri gertatukakoen gertaerari? Guk, neutralok, urruti gaunden bazter ontatik, esango degu, esan bear diranak.

Pakistan erriak bai aldu arrazoirik? Ez ta ez. Gaur bi areriyo oiek ortan nola dauden, Inglesak dituzte erruak. India'ri askatasuna eman ziotenean, etzutelako bear diran bezela gauzak egin.

Ta Bengala'n sortu guda ta ondorenak guziok irakurri ditugu. Idazlan au idazten ari naizen egunean, izparrak diote Dacca erori dala.

Orain zer?... Ez da zailla asmatzen. Emango diote Bengalari askatasuna, ta ortan aspaldi sortu bear zun nazioa sortuko da. India'k ez du beste lapurketarik nai, baizik gauzak bere lekuan jarri.

Ni ez naiz arritzen bien bitarteko goraberak ikusten ditugunean ONU aldean. Iñungo nazioak naiz ta arrazoiak izan, aundikiak nai dutena egiten dutelako. Iru aundiki oiek agintzen dute munduan. Batak baten alde, besteak bestiena. Txinoak orain Pakistan'en alde, Rusoak ostera India ta Bengala'n alde. Amerikanoak zer? Amerikanoak merkader ederra diranez, komeni zaiotenen alde...!

Orain, Bengala'ko guda bukatu dala esan geinke. Ze ondorenak ekarriko dituzte? Pakistan alderdikoak ongi dakigu, ze nolako erailtzak egin zituzten, Bengala'ko askatasun zaleen artean. Orain ordea, gauzak bestera sortu dira, ta, ze ordain emango diete bengalatarrak besteeri?... Bide berdiñari jarraiko? Ala barkatu? Ez da an giro izango oraingo! Ez nuke nik beintzat egon nai pakistarren artean!...

Nola konpondu baster oiek? Lurreko guda darteak, nola bukatu? Emanaz bakoitzari berea, ala arrazoiak aintzakotzak ez artuaz? Ez nitzake arrituko olakorik gertatuko ba'litz. Zikinkeri ugari ikusiak gaude munduan. Oienak ere berdintzuak izanik, itxoingo degu ze nolako berpizteak agertzen diran.

Nik dakitena, ta orain artean ikusi deguna, izan da, alegia, guda irabazten duan arroputzak, berak artzen dituan lurrak beretzak geldituak izan dirala. Begira, rusoak zer egin zuten. Letonia, Estonia, Lituania aberriak ostu, ta zapaldu bertako abertzaletasunak, ta gaur egunean ezer gertatu ez balitz bezela or daude aberri oietako biztanleak burua makurtuta. Zer egiten du ONU'k? Ixilik egon. Or daude Besarabi ta Rumania, or daude Polonia'ri kendutako lurrak. Zer egin du ONU'k? Orain ostera, rusotarrak arrazoi ematen dio Bengala'ri. Zergatik? Zergatik izango da, komeni zaiotelako noski... Zergatik ez diote rusoak ematen askatasunik laterri menperatu oieri? Ongi dakigu zergatik, ta emen zertarako geiago esan.

Israeldarrak ere, gauzak orrela ikusita, arrazoi dute. Emen ordea rusoak besteen alde daude! Orra or bateko besteen alde!

Zer esanik ez, begiratu dezagun Irlanda'ra... ingelesak eman ziotenean askatasuna, zergatik ez zioten eman guziena, ta orpuska orrekin gelditu. Ulster dalako orrenolabait lurrik ederrenak izan, aberatzenak bi aberri bitarteko ur-estuak eta abar. Gaur zer? Irlandesak aserre ta arrazoiren pallik ez dute. Ortzak erakutziaz egunero, ta erailketak ta ortan sortzen diran gertakizunak sortuaz. Eman-eman irlandarreri aberri guzian askatasuna. Ori egiñik, gudak bukatuko lirazke alde guzietan. Ori egiten ez dan bitartean, betiko izango dira eztabaidak.

E. OZKIN

AGUR

III URTEA
30 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1972 - OTSAILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ANTZERKIAK

Elertiaren, literaturearen kondairabarruan atzerkiak garrantzi aundia dauka eta idazle taldeak euren eldu-arora sartu diranean antzerki-egille onak beti izan dabez. Gogoratu dagiguzan Edipo, Shakespeare ta Lope de Vega izen geiago ez esatearren.

Eta antzerkia, Erria eziteko, bide ziurra ta garrantzitsua izan da kondaira guztian, oraintsu arte beintzat. Gure gizaldi barrizale onetan zineak eta telebiziñoak artu dabe, zati on bat gitxienez, garrantzi ori. Baiña ez oso-osoan. Ba dira gaur be antzerki-zaleak zintzoak eta ugari.

* * *

Elerti-kondaira guztietan antzerkiak asiera apalak izan ditu. Batzuetan eleiza-barruetan, gero enparantzetan... grezitarrak eurak be mendi bitarteetan asi ziran aldapetako maillak jezarleku zirala.

Baiña, gero, zelako aunditasunera eldu zan, bazter guztietan, antzerkia, eta zelako izan ospetsua lortu eben antzerki agerleak! Egilleak eurak baiño ospetsuagoak sarri askotan! Zenbat txalo jo ta entzun dira ludiko antzokietan!

* * *

Euskal-elertiaren kondairea oindiño asten dago. Noiz etorriko ete bere eldu-aroa! Urte asko dira asi zala, baiña aurrerapen gitxi egin dau. Ez gara izan Erri idazlea, ez dogu maitatu bear dan beste geure izkuntza idatzia.

Eta gure kondaira laburrean ez dau antzerkiak bear leuken garrantzirik izan. Bearrezkoa dogu ba, indar barri bat elerti-era oneri emoteko, antzerki-idazleen bazkunak eta antzerki agerleen batzak sorrerazotea.

Errietako jaietan zergaitik ez antzerkiak agertu?

Oztopoak ugari doguz: Antzerkitza eroan bear, nortzuk diran agerleak agertu bear, erderatuta erakutsi bear... gero baimena emoten ba'dabe ikusi. Baiña gure ustez lan onuragarria litzake.

Elerti-era oneri indarra arrerazoteko beste bide bat be bururatzen jat. Irakaste-etxeetan, zapatu goizetan, antzerki-agerleen taldeak sortu, eta orretara gaztetxuai euskal-antzerkiaren zaletasuna barruratu. Au lan ederra dalakoan gagoz, baita ikasleentzako eta euren gurasoentzako pozgarria be.

* * *

Ondo dakit au eta ezin ukatu: Irratiak eta, batez be, telebiziñoak euskarearen aurka daben indarra ezetuteko gure antzerkitxuak ez dira gai. Baiña, egunen baten, irratirako eta telebiziñorako bideak zabaltzen be'jakuz, norbaitzuk gertatuta eukitea gauza ederra izango da.

* * *

Ba dira gaur entzerki idazleak, batez be Guipuzkoa'n eta Lapurdi'n. Antxiñarik Zokoa'ko abadeak ta Tolosa'ko idazle taldeak lan ederrak agertzen ditue. Gura eskuan dago ba idazle txalogarri orrein lan ederrak Erriari erakustea ta agertzea.

Euskal-antzerkiaren giro eder au indartu ta berotu daigun geroago ta geiago, eta egunen baten gure Erria eskar onekoa izango jaku.

Bakotxa bere lekuan, idazleak, agerleak eta laguntzailleak goi-maillaraiño eroan daigun gure elerti-era auerrietan, eleizetan, plazetan, irakastetxeetan... edonork, edonon eta edonoz.

AGUR



Euskal-antzerkia indar barritu.

EUSKAL ANTZERKIRIK BAI ETE?

Bilbo'ko izparringi batek goiko itaun ori egin eban oraintsu. Ta idazleak, arazo orren gorabera ta zertzeladak azaldu ondoren, onetara emoten eban bere eritxia:

«Egiten dan antzerkia, bizitzari dagokiona ez ba'da, ez da gauza Erri baten nortasunak eta jakintzabideak eskatzen dabenari erantzuteko. Betiko leloan bizi ba'da, ez da bere kaxkartasunetik urteteko gauza izango. Euskalerriak Erri bezela iraun ba'dau, aurrerapideari zor dautso. Gaurko egunean, euskal-izkuntza esku-artean darabilgu, landu bear dan pitxi baten antzera, aurrerapidearen agerketa arro bat bezela. Euskerea ez da, bear bada, ezereztua izango, baiña ba'leiteke menperatua izatea, apaingarri bat biurtzea».

* * *

—Zuk zer deritxozu? —itandu dautsogu Garai'tar Eloi jaunari, antzerki-arazoa ondo ta sakon ezagutzen dauanari.

—Or aitatu dozun eritxi ori ta neuria ez datoz bat, iñundik be. Antzerkiak, nire ustez, eresidun izan bear dabe, soiñudunak: opera txiki, zartzuela ta abar. Drama-uts diran antzerkiak nekezago bete oi dabe erriaren gogoa. Orra, esate baterako, guztiok dakiguna: Rikardo Puga «Intereses Creados» izeneko antzerkiaz, Franzisko Moreno «Papa Lebornard»egaz, Margarita Xirgu ta Enrike Borras «Tierra Baja»gaz... eta beste orrelako batzuk, antzerki-lan bikaiñenak emotean, nekez bete izan dabe antzoki-erdia.

—Ta euskal-antzerkiaz zer diñozu?

—1899'garren urtean artu eban Bilbo'ko Abesbatzaren (Koralaren) zuzendaritza Valle irakasleak. Santiago'ko organu-jotzaillea zan aldi aretan. Sari ugari irabazi zituan, bai Euskalerrian bai atzerrian. Abesbatza orren batzokiko ormetan amaikatxo garaipenagiri ikusi leitekez ondiño be. Valle jaun argi orrek emon eutson bizia euskal eresidun antzerkiari. Decrept eta Colin antzerki-egilleen «Maitena» pastoralaz asi zan, eta erriaren berotasuna ikustean, «Lide ta Ixidor», «Mendi-Mendiyan», «Mirentxu» eta «Amaya» antolatu ta agertu zituan.

—Antzerki orrein edergailluak zuk egiñak izan ziran?

—Bai, or aitatu doguzan antzerki guztien apaingarriak neuk egiñak izan ziran.

—«Txanton Piperri»renak be bai?

—Ez. Antzerki ori Donostia'ko Euzko Abesbatzak antzeztu eban, ta edergailluak be eurak ekarri ebezan.

—Noiz eta zelan izan zan «Maitena»ren lenengo agerketea?

—1909'garren Orrillaren 29'an antzeztu zan lenengoz, Bilbo'ko «Campos Eliseos» antzokian. Ona emen abeslari nagusien izenak: Badenes aizta biak, Bravo andereñoa, Alonso eta Urrizelki tenorrak, Portuondo baritonoa, Molina abots bekoa, Larrañaga ta abar.

—Askoren eritxiz, «Mendi-Mendiyan» dogu euskal eres-antzerkirik bikaiñena. Zer deritxozu?

—Urrengoko batean itz-egingo neuke ortaz luzaroago. Gaur auxe baiño ez. Oraingo Koralaren zuzendari diranak (Chacon Unzue, Gerrikabeitia, Tapia ta abar) ikusgarri ta entzungarri dan lan eder ori barriro emoteko asmotan dirala entzun dogu. Ai egia ba'litz! Ba-daukez orretarako abeslari onak: Ana Mari Ruiz, Egia, Solaun, Catania ta abar. Poztuko giñake benetan!

—Azkenez, esaiguzu zeozer «Amaya»ri buruz.

—«Amaya» Bilbo'n agertu zan lenengoz, 1922'garren urtean. Abeslari nagusiak oneik izan ziran: Ottein sopranoa, Nieto mezzoa, Fagoaga tenorra, Agirresarobe baritonoa eta Olaizola bekoa. Taldea, Korala. Oso txalotua ta goratua izan zan. Ori zala-ta, urrengo urtean, Madrid'era eroan eben, ango Errege-Antzokian emoteko. Garaipen ikaragarria, an bere. Orduan, London'era eroateko asmotan ibilli ziran, baiña au zala ta bestea zala, eziña izan zan.

—Euskal-antzerkia ba-dogu orduan, zure ustez?

—Bai orixe, ta lurbira osoan agertzeko aiñakoa, izan be!

BEIÑAZU

EUSKALDUN EUSKALDUNERI

Guztiok dakigunez, apur batzuk izan ezik, munduko gazte talde geienak askasuna eskatzen dabe; baiña, ba-dira gure artean, askatasuna itza agoan erabilli arren, urko lagunari edo errikideari ukatzen dautsenak. «Kultur» izenpean lanean diardun batzorde baten, oraintsu, bazkide batzuk «aldizkari au zapaltzaillea da» esanda, beste aldizkarien artetik, gure AGUR'a kendu eben. Batzarrean zeuden jatorriz euskaldun diran gazte bik edo iruk, jokabide ori gaizki egoala adierazo eben, «kulturadun» izan nai daben gizalegeari irutxur egitea zala esanaz... baiña alperrik.

Euskaldun-barri bi edo iruren «legea» da, ikusten danez, alkarte aretan nagusi ta ez dakit nik gure aldizkaria «inkisidor» barri oien «Indize»an jarraituko dauan ala ez. Gugaitik, or-konpon! Baiña argi ikusten da, diktador txiki oiek, lenago Eleizeari ezartzen eutsezen erruak eta giza-zapalketak, eurok be barriztatuko leukezela, agintaritzan ba'legoz...

Batzorde barruko gora-berak ez dauskue buruko miñik egiten, baiña, bai erririk-erri, «jakintsu jantziakin» egiten dabezan ibillerak. Euskeraz ikasten asi nai daben erdeldun bateri, beste azalpen barik galdetu ezkero: zelako euskerea ikasi nai dozu, zure erri inguruan egiten dana ala Euskalerri osoan ulertu al (?) izango dan «gure batua»? Erantzuna erreza da euskeraren mamiña ezagutzen ez daben erdeldun orrentzat: «nik 'batu' ori».

Baiña zuretzat, eta orain zuengana, euskaldun jatorrizko orren gana natorkizue, erantzuna ezin ledike bardiña izan. Zaletasunak bultzaturik euskera jakintzan sakondu nai ba'dozue, zuen euskalkia ondo landu ta aztertu bearko dozue, lenengo oinkadak emon aurretik. Zeruko Argia'n aspaldiko adizkide dodan Bittor Kapanaga'k idatzi duna irakurri dot. H'ak eta beste bitxikeri batzuk onartzen ditu («modan» egertzearren-edo), baiña berak erabilten dauan euskeratik, or-emen, bere «maixutzat» sortu diran euskaldun-barri batzuen euskerara, Illargirarteko aldea dago. Gauza askotan batera nator beragaz, baiña nundik asi? Ea bere lagunen batzuk biguntzen dituan, «erri-izkuntza» ganako errespetuan baiño ez ba'da be.

Bitartean, eta zuek, gazteok, lekuko izango zaree, toki askotan ikeragarrizko gudea sortu dautse euskalkieri. Zuen ama onak, altzoan irakatsitako izkuntzea alperriko gaixoa besterik ez ei-da; il zorian dagon euskalki ori, len bait len ito bear ei-dogu... bere ordez, Galizianok eta beste euskaldun-barri batzuk asmatutako «erromanzea» bizi daiten.

Antxiñako idazleak artu bear ei-dozuez eredutzat; eziketa guztia latiñez izan eben gizonen euskerea. Idazle sakonak izan ziramik ez du iñork ukatzen, baiña gaurko igarle barriak ez dabe aren esan-nai jatorrik barriztuten, areik erabilten eben iztegi «erromanizatua» baiño.

Euskaldun gazte; gure izkuntza ederra erdera mordoilloan nastatzeko, ez dozu uste naikoa dala gaurko giroa bera? Egunerokoak, irakaskintza, irratia, telebizioa, zinea tabar, ez ete-dira naikoa ta larregi erderatze orretarako? Zuen iztegi jatorra, txiro naiz aberats, alde batera itzirik, erderazko itzak artu bearko ete dozuez, «euskerantoaren» barruan egon al izateko?

Eta zelan ez, euskera garbiaren alde, erriko euskerearen alde gabiltzanori... makila! ta azpi jokoa! Eta ez guri bakarrik; or dozu Kili-Kili langillea! Iñork euskeraren alde lanik egiten ba'dau, gure «mutikoa» da bat.

Aurrez-aurre ez, bear bada, baiña atzetik... al dan guztia egiten dautse; ba-dakizue zergaitik? Asmorik onenagaz, erriko euskeran alpabetatzen daualako gaztedia, ta ez lau katu orreik asmatutako euren euskeranto batuan.

Besterik ezin esan eta ba-dakizue zer diñoen? Abarkak, kaikua ta txapelagaz agertzea «arlotekeria» (euskal-usain larregi-edo) dala. Arlotekeria, mutikoaren itxurea! Jakiña, maixu-barri oiek txapelagaz batera buru txapeldun ori aldatu nai leukee; erbesteko adimen eta oiturekin nastuaz gure nortasun berezia galbidean jarri... ta gero «munduko erri guztiak bat» baiña euren makila pean!

Gazte, gure aldizkari au benetan kaltegarria dala uste ba'dozu, jaurti eskuetatik, beste lerdo batek esan eban lez, baiña ez zuri amak irakatsi eutzun euskera bizia iraindu! Zure seme-alaberi erakutsi bera; iñoiz gure errietan entzuten ez ba'da, beste orrein naia beteko da, ta illarri aundi bat egin bearko dogu: «Emen Euskalerria izan zan» ta «Euskeraz egiten zan». Baiña, zuek eta nik ez dogu olakorik nai, ta «laboratorioetako» sasi-jakintsuari atzea erakutsiaz, jarraitu daigun zapi gorrien ordez, betiko gure txapelakin, gure umeen buruak eta aburuak apaitzen.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

GOIZ-ARGI ADITZ BARTUAREN BILLA

GOIZ-ARGI aldizkarian, Larrea'k izenpetuta, ELIZTI - JARDUNAK (etxerako ikaskizunak) agertzen asi dira 145'gn. zenbakian. Asmakizuna ona da, onelan irakurleak euren euskerea obeto jakiteko bide bat izango dabe. Eta gramatikea jakitea oso bearrezkoa da izkuntza baten jabe izan gura dauanarentzat.

Baiña gaur gramatikea irakasteko gaiztasun bereziak agiri dira, irakaskera oso ezbardiñak. Zein izango ete da GOIZ ARGI'k artuko dauana? LARREA'k berak erantzuten dausku lenengo irakastaldi onetan: ERRI-BIDEA. Eta onetan zuzen dagoalakoan nago neu be. Izkuntzea Erriarena, eta Erria bera da benetako maixu bakarra, eta izkuntzearen aurrerepenak, beti, Erria dabillen bideetatik egin bear dira. Gramatikeak legeak emon baiño beiñago Erriak daukazan legeak aztertu ta batu bear ditu, «normativa» baiño lenago «descriptiva» izan bear dau.

* * *

Gero gaiak iru sailletan bananduko ditula diño: Aditza, izena ta joskerea.

Lenengo ikaskizuna aditzari buruz agertzen dau. Giputz-aditza artzen dau eta aukeratze ori egiteko zio batzuk agertzen ditu: zabalduena dala, erdikoa dalako; errezena dala. Egia esan, onetan ez nago Larrea'gaz batera. Nire ustez zio bakarra auxe izan leiteke: irakurlerik geienak giputzak dirala, eta orregaitik, eurentzat, errezena dala, baiña irakurlerik gei'enak bizkaikoak ba'leitekez, egokiago litzake lenengo Bizkai'ko aditza irakastea, gero Gizpuzkoa'koa eta gero beste batzuk. Izkuntza bat irakasteko ikasleak dakienetik asi bear da, or dago benetako erreztasuna eta benetako poza. Ez daigun iñoz gure euskerea berez dan baiño gatxagoa egin, artu daiguzan beti erreztuteko bideak.

* * *

Aditzari buruz dakazen irakatsiak neure ustez argiak eta sakonak, egokiak eta zuzenak dira:

> **«Aditzak bereizten du erabat gure izkuntza inguruko erderatik».**

GOIZ-ARGI

> **«Gaztelera ta prantzerak pertsona mailla bat besterik ez dute».**
>
> **«Euskerak berriz iru lagunmailla. NOR, NORI, NORK».**
>
> **«Euskeraz eta erderaz ez dugula berdin pentsatzen».**

Oiñarri oneik ezarri ondoren azelpena oso argi ta ederto dator. Eta nork egi argi oneik ziurrak ez dirala esan daike? Euskeran beste gai asko dagoz, erderatik urrin izten gaituenak, esaterako atzekoz-aurrerako joskerea (postpositivo), baiña aditza da benetan gure pentzekerea ta esakerea geien berezituten dauana.

* * *

Azkenez, Larrea'ri zertxobait: Alegindu erreztasuna ta sakontasuna batzen.

OLAZAR MARTIÑ'EK

Zein da "nai" aditzaren tokia?

NAI aditza, esaldietan, modu bitara erabilten da. Batean, esaldiko aditz bakar lez: «Lur zati bat duenean, beste bat NAI izango du».

Bestean, beste aditz bat lagun dabela: «Beti BIZI NAI dugula».

Aditz au, BEAR lez, Azkue'k erdal itzez «modal» saillean sartzen dabena da. Beraz lege bardiñak zuzentzen dabena. Ala be oituraz, oneri azkatasun geiago emoten dautsagu sintaxis kontuan. (NAI aditzari, esan nai dot).

Enfasisean esaten doguzan «Bearko jan!», «Bearko emon!» ta olakoetan izan ezik BEAR aditza beste aditzaren atzean ipinten da. («Jan bearko!», «Emon bearko!» ta olan be esaten da). BEAR aditza beste aditzaren aurrean entzuteak belarrian min emoten dausku. Ostera NAI aditza beste aditzaren aurrean esan edo ipinteak ez, konplementorik ba'dago beintzat: «Datorren igandean Donosti'ra NAI dot JOAN».

Edo ta esaldiko aditz bakarra bera danean konplementoaren aurrean entzutea be ez jaku arrotz egiten: «Buruan sartzen bazaio lurra naiz ganadua eukitzea beti NAIKO du GEIAGO.

Ala be, ez dot uste NAI aditza atzean edo aurrean ipintea bardin danik. Sintaxis lege barik ez dago euskerea, ta gauza guztietan zeatz-zeatz ezin eroan ba'da be, kontu au, aditza an edo emen ipintea ez da garrantzi gitxikoa, nai dabenak nai dabena egiten lagateko. Arazo onetan be esaldiko inkiridua zein dan zer ikusi andia dauko.

Jakiña, NAI aditza, beste aditzaren edo konplementoaren aurrean joan daiteke eta joan egin bear dau erderaz YA daroen esaldietan: Ahora ya quiere comer = Orain NAI du JAN. Antes no, pero ahora ya quiere más = Len ez baiña orain NAI du GEIAGO.

Ezetzkoetan be NAI aurrean esan al izango dala uste dot: «Orain ez du NAI JAN».

Olakoetan izan ezik, NAI aditza beste aditzaren ondoren joan bear dala uste dot ta aditz bakarra bera danean konplementoaren atzetik. Ara barriro idazlan onen asieran ipiñi doguzan esaldi bi: «Beti BIZI NAI dugula». «Lur zati bat duenean, BESTE BAT NAI izango du».

Infinitiboan, danok, NAI aditza beste aditzaren atzean, erderatik alderantzira esaten dogu: Jan NAI = QUERER comer. Jan NAI dot = QUIERO comer.

Gaurko idazlan au egiteko idazle bakar baten idazki zatiak ipiñiko dodaz (gaurko euskal idazleetan punterengoa bera) bere liburu batetik artuta. Nire ustez ondo dagoazanak eta ez dagoazanak danak alkarren ondoan nastean arkitzen dira, NAI aditza aurrean edo atzean ipiñi ardura gitxi dauskula agertzen. Egia, liburu orretan be, nire ustez ondo dagoazanak geiago dira.

Esaldiak zati bitan joango dira. Lenengo, nire ustez ondo dagoazanak eta gero, besteak alderdi bitan, idatziak izan diran eran ezkerrean, eta zuzenduta eskuman.

«; gure bizi naiak ARUTZAGO NAI du».

«; beti BIZI NAI dugula, eriotza ezin dugula onartu».

1) «Alperrik da ba gure sentipen orrentzat oiñarri jator ta sendo bat BILLATU NAI izatea».

2) «Nik BIZI NAI dut, eta ez il —dio berak— bizi, beti bizi, eta nere nai ori erokeritzat jo bear balitz ere, ero IZAN NAI dut nik».

«Lur zati bat beretu duanean, BESTE BAT NAI izango du. Sei bei ikuilluan baditu, BESTE SEI NAIKO ditu.

(Emen oar bat egin bearrean arkutzen naz. 1) ta 2) zenbakiak daroezen esaldietan, batean, «NAI izatea» dago ta bestean, IZAN NAI, au da, NAI aditza baten beti lez atzean eta bestean aurrean. Ta bietan dago ondo; Lenengoan aditz bakarra da NAI IZATEA, berba biakaz aditz bakar bat egiten da: QUERER. Ta bigarrenean aditz bi dagoz, IZAN = SER eta NAI = QUERER ta azkenengo NAI onek emen aitatu doguzan beste esaldietako zeregin berbera egiten dau).

Goaz orain ondo ez dagoazala ta azkenean ipiñiko doguzala esan doguzanak:

idatzi dabe

Mundu onek eta gure bizitzak duan esanaia, sentidua, NAI du gizonak JAKIN.

Buruan sartzen bazaio lurra naiz ganadua eukitzea beti NAIKO du GEIAGO.

Gure sentierak bizia maite du, NAI du beti BIZI.

Berak NAI du ORAIN ORAINGO GAUZA BAT eta ez besterik.

olan obeto nire ustez

Mundu onek eta gure bizitzak duan esanaia, sentidua JAKIN NAI du gizonak.

Buruan sartzen bazaio lurra naiz ganadua eukitzea beti GEIAGO NAIKO du.

Gure sentierak bizia maite du, beti BIZI NAI du.

Berak ORAIN ORAINGO GAUZA BAT NAI du ta ez besterik.

KAMIÑAZPI

Pozak eta kezkak

Giltza, atxaki.—Zeruko Argiak, bere burua aldizkari «neutral» bezela agertu nai izan arren, adarjotzailleak be ba-ditu. «Piper-Ziri» nor ete-da? edo nortzuk gara? Batzuk atsegiñez eta beste batzuk ez orrenbestean irakurtzen dan sail bat, ezebez besterik. Baiña «Diojenes» batek, Euskaltzaindian sartu, euskaltzain laguntzaille (zakila, baiña) izentatu nau; zori txarrez ezin nik eskerrik emon, «Intsentsu S. en C.» alkartean ez bai nago.

Bizkaitar umeen artean zabaltzen asi diran idaztiño baten irakurri gendun (bere marrazki ta guzti) «giltza bat» ori gaizki egoala esan ba'gendun, esan gendun! Bergara'n orrela esaten ei-da ta «naiko» erantzun dauskue. Ba-liteke baita, maia esateko «mahaiña» be nunbait esatea, baiña gure umeeri ori erakustea ezin guk ulertu... ta liburuxka bertan ikusi dogu «arnas-estu» ta guzti irakurtzeko «inprimatua».

Dana-dala, ba-liteke (Piper-Ziri linguista makala danik ez dogu ukatzen-eta) jaun orrek arrazoia izatea, ez baiña Z. A.'an iñoanagaitik bakarrik. Iñongo bazterren baten olan esaten dala-ta, ondo edo txarto egon, komeni jakoenean «dokalismo» deitzen dautse.

Ara, guk dakigunez, Barandiaran'tar Joxe Migel jakintsuak txosten bat bialdu eban bein Euskaltzaindira, soiña ala gorputza, eztabaidan jarri ebezenean argi pixkat emoteko asmoan: Bere ibilleretan soiña entzun ebala ainbat tokitan, eta bere arrazoiak emoten zituan... baiña, ba-ete-dakizue zer erantzun eutsen? «Lokalismoa» zala. Orra ba, jakintsu orren iritziak lokalismoak ei-dira, ez da ba Barandiaran jauna «Intsentsu» alkarte orretakoa. Jaunari eskerrak, gure auzietatik goian eta urrun dabil Joxe Migel jauna!

Beraz, eta aldeak alde, asi gaitezan barrido goiko izenburutik: «Giltza» aitzakitzat artuta ona emen «Piper-Ziri» ri ezartzen dautsoezanak: «astoa», «linguista merkea», «euskaltzain zakil» etabar. Eskerrikasko! Linguista makala naiz, bai, ta euskaltzaiña ba' nitz... ba-litzake zakila izatea be. Ala ta be, Z. A.'ko kronista orrek jakin ez zenbat euskaltzain ez-jakin dagozan. Ez ete-daki, euskaltzaiñen artean euskerarik ez dakienak be ba-dirala? Ez ete-daki zelan izentatzen diran «osokoak» eta laguntzailleak? Ez daki jakin be, itxuraz, Akesolo'tar Lin, Mokoroa jakintsua, Onaindia nekatu-eziña, laguntzaille utsak dirala. Gaur «zeozer» izateko, euskereari barik, latiñari eta erdereari makurtu bear dirala, ta «omeletan» sartuta egon bear.

Amaitzera noa «ziri» luzeegiak urten daust-eta. Nere ustez, orren jakintsua dan kronista batek bere «tokia» izango dau zain Euskaltzaindian; orrenbestekoaren eskean dabillenak, «Intsentsu S. en C.» koak lagun izanda, laster aurkituko dau zuloa. Atxakia? Alpabetatzeko «kanpaina»rako edo beste edozelako «txanfaina»... ez da ba lenengoa izango.

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Euskerea euskeraz

Bizitza aurrera doakit. Ezpairik bage amaitzera. Berbeta bi erabilli bear izan ditut erri ontan ogeta-bederatzire urteren buruan. Bat jaiotzatik artu nebana. Gurasoak emona. Bestea gero, ezarria. Lenengoa da amaren ugatza, bigarrena buruko kapela ezarria.

Berbetaren bidez jakituria artzen dogu geure bizitzaren on eta aurrerapiderako. Emen agertzen da ba berbetaren garrantzi eta edertasuna. Gizonarentzako izan da mesede au. Burubide ederrak eta argitsuak entzutea, ta egokieraz, esan al izatea, pozgarria da.

Jakiturizkoa da, izan bere, pentsamentu zurrak sortzea. Gizon zurrak buru bide zurrak agertzen ditu. Ta txikitatik ikasten asi dan ume burutsuak, bere barruko jakituriaren etxea, obeto gertuta dauko, gizon jakituna izateko.

Txikitatik artzen da edozein arazotarako egokitasuna, mendu barriak landara gazteari ezarten jakozan gisara. Guk be euskera, berbeta jakintsu au, jatorriz artu genduan. Berezkoa dogu. Gure barrua trabarik bage aurkitu eban.

Lur mamintsu ta girokoan gari azia umeldu ta landara guri agertzen dan lez, euskereak euskalerria izan eban sor-leku ta euskal-gizadian, zearka, ibilliko da erriagandik bizia artu ta erriari bizia emoten.

Euskal arrobi ta bizia, ementxe dago. Gizonik jakintsuenei buruak apurtzeko aiñakoak diran euskal enda ta bere millak urteetako izkuntza ditugu gure gaurko berbetaren oiñarri ta gatz. Gizon jakintsuak eta ain ez jakintsuak, euren egunerokoan bearrean, artzaintzan, lugintzan, oletan, burdinlantegietan, eleizetan eratu ta zabaldu eben euskeraren bizia.

Lengo gizaldietatik eta orain millak urteetan gure erriak ez euken oraingo nastaketarik, ez jakitunkeriz, ez odolez, ez nausikeriz. Berenez be tuago zan gure aurretiko erriaren izaerea. Ingurunetan bizi zirela, sortu eben gure arbasoak euskerearen izamena.

Izaera bateko erriak, sasi jakitunkeririk ez eukan aldietan, bere izateari, zuzen eta ondo etorkion alkar-ulertzeko berbeteari bizia emon eutson. Erri garbian egozan era guztietako lagunak izan ziran, euskera sortu ta indartu ebenak. Orzan euskerea, euskaldunak eurentzat alkar ulertzeko ta maitatzeko sortu eben izkuntzea.

Berbeteak berez, erriaren izaera, bizikera ta pentsabideari erantzun bear dautso, beti, aurrantz egiñaz. Ta gure euskereak euskaldun izkera, lan eta jakituriari erantzungo dautso. Ta ori ez egitera, euskaldun berbetea ez da izango. Gure izkuntzea, Euskal-erriko euskaldunen bihotz eta neke artean, bizi-bizirik, darabillena izango al da. Betiko euskaldunena. Euskaldun errirrak, zeuen betiko berbeteari jarraitu. Euskera ori da-ta.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

GAZTE

Itxaropenez beterik

Gazte aldian, eztabaida edo «polemika» aldiak beti izan dirala ezin ukatzekoa da. Baiña, zergaitik ainbeste burruka?... ba, gaztedia berez barri zalea izaten dalako; eta gure gizartean barriztasun ori ezartzea ez dalako ain erreza. Beste aldetik; gazteak daben garrantzi ta indarra gai eta arazo askotan, argi ikusten da gaur egunean. Sarritan, gaurko gaztediatzaz, olako esaldiak entzuten dira: «Gaurko gaztediak ez daki norantz zuzendu bere pausoak». «A bai gaztedia, ez gaurko egunetakoa!», «Gazte geienak, lotsagabe uts batzuk dira», «Oraingoak bai datozela indartsuak»... eta abar. Guk, gaurko gazteok, ez dogu ezagutu lenagoko gaztedia; eta orregaitik ezin dogu emon gure iritzia. Gu, gaurkoak gara; eta orregaitik etorkizunerantz begiratzen dogu; an atzean ez dogu ezer galdu-ta.

Gaurko gazteok ba-dakigu, jente asko gure aurka dabillela; ba-dakigu baita, gure jokabide ta egiteak eztabaida itzelak zirikatzen dabezela; ba-dakigu gaurko «moda» edo «tendentziak» ez dirala askotan begi onakaz ikusten...

Zer esan geinkie gaurko eta atzoko gaztediatzaz? Ba, errezena: Beti izan dirala gazte onak eta gazte ez ain onak.

Baiña oraingo gaztediak ezaugarri bat du: lotsagabetzea edo biurritzea. Askotan biurritze ori garbitu edo «justifikatua» ez dagoala ba'leike egia izatea; baiña nire ustez, gaurko egunetako biurritze orrek zeozer esan nai dau. Eta or dago gure eginbearra, gazte guztion eginbearra: BIURRITZE ORI GARBITZEA!

Olan ez ba'dogu jokatzen, gure entzute edo «famea» ez da asko obeagotuko. Ortik esaten da, gure onbide edo «birtute» onena, benetasun edo «sinzeritatea» dala. Ta ba biurritze orrekaz ziñeskoak izaten gareen. Gaurko gizarteak, gaztediaren gauza txarrak ikusten ditu -onak be bai, baiña gitxiago: drogak, lapurketak, lizunkeria, protesta, zentzungabekeria... eta abar. Eta munduari gure alde ona erakutsi bear jako; munduari erakutsi bear jako, oraindik ba-dagozala gazte zintzoak; gazte bulartsuak; gazte egi zaleak. Au be egia da. Eredu asko daukaguz; gazteen eredu jarraigarriak. Munduan ba-dagoz gazte ondrauak eta bizitz barri zaleak.

Ez!, ez drogak bakarrik.

Zu be guretarra zara; zu be gaztea zara. Orregaitik gaztetasunaren alde lan egin bear dozu; zure gaztetasuna bete bear dozu. Sarritan galdua egongo zara; sarritan, txoriburu bat bezela, zuzendua aurkituko zara. Baiña ez zaitez ito, ez zaitez estutu. EKIN TA AURRERA! Egoera ortan gazte danok aurkitu gara gitxi gorabera-ta.

Garrantzi aundienekoa au dozu: norberetasuna ez galtzea. Gazte askoren idealak oso sakonak dira; baiña denpora joan ta denpora etorri utsunean galtzen dira. Askok, euren buruak saltzen dabez; beste batzuk gaur ezkerrerantz dabiltza eta biar eskumarantz... Ez!, ori ez da gaztediaren biurritzea garbitzea. Biurria ba'zara, ez zaitez izan agoz bakarrik, egitez baiño. «Ez nago konforme!» esan ba'dozu, beste bizimodu bat aukeratu egizu. Olan, munduak ezagutuko zaitu obea; olan egizko gazte bat izango zara. Olan gure aurkariak, apurka-apurka, ixilduko dira. Siñesmen gazte bat erakutsi zazu!, biotz alai bat eskeiñi zazu!, mundu oba bategaitik lan egizu!

Bai, ba-doguz gazte osoak; gazte onak. Melena luze edo bizarra eroan arren mini, midi edo maxi eroan arren, gure artean gaztedi barri bat dogu. Ia ba, gaztedi jarrai billaketea!, erakutsi dezagun mundu guztiari ez gareela ain txarrak. Eta ori, egunero, illero, urtero lortu bear dogu.

Euskal gaztedia, beti izan da benetako gaztedia; olan jarrai dagiala! Orain galdetzen ba'daustazu... nortzuk izan dira onenak; gaurko gazteak ala atzokoak? nik erantzun bat bakarrik dot: GAZTEDIA, GAZTETASUNA, BETI IZANGO DA GAUZIK EDERRENA! Bai; itxaropen aundia dot gure gaztedian; itxaropen aundia dot euskal gaztedian baita zurean adizkide maitea, ta nirean be bai. Munduari erakutsi bear dautsaguz gure edertasunak ta gure adoreak.

Eta lantxo au bukatu baiño len, gauza bat argi utzi nai dot: idaz-lan au, EZ DOT ZAARREN AURKA EGIN. Agur ba, gazte, laster arte.

Itxaropenez beterik

EZKAURIATZA'TAR XABIER

JAN EDAN ETA IL

Askotan, orduak triste igarotzen dira. Batez ere, gure sendiko bat, lagun edo auzoko bat iltzen danean.

Neri ere etorri zitzidan triste egoteko aukera.

Egun artan, bi aldiz sentitu nintzan triste, nire barru a goibel arkitu nuen. Lenengo, sendiko bat il zalako, bigarren, il zanaren etxean entzun niuelako gizon bateri, onelako itzak:

«Gizonak bere bizitzan onela jokatu bear du: Ondo jan, obeto edan, eta gero lo egin; il».

Eriotza etorri baiño lenagotik, esan genezake, errela jarraitzen duenak, gizon bezela illa dagola, abere biurtu baita, goitik beeraiño.

Tristea da bai benetan XX'en gizaldian onelako zerbait entzutea, eta entzutea bakarrik ez, baizik, orrela gertatzea. Ori jakiña Vietnam'en, non baterako, ezin da egin. Bertan iltzen bai dira ezer jan gabetanik, entzun degunez.

Emen Euskal-Errian, fama aundia omen dago jan eta edateko kontu orretan. Baiña gure lur onetan ere, Vietnam'en antzera ba-dira, jan, edan eta lo askorik gabe bizi eta il diranak.

Euskaldun jatorrari, min eman bear lioke, benetan, gastronomiko alkarteak kultura alkarteak baiño ugariagoak izatea.

Protesta abestiak atsegin zaizkit (bi edo iru kenduta). Eta «Eleiza pobrea, denontzat obea» dion abestiak bezela, jan, edan eta lo bakarrik egiten dutenen aurka ere, zerbait abestea egoki eta bearrezkoa litzakela pentzatzen det. Euskaldunak izan gaitezen fama pobrekoak, ekintza oietan, eta aberatzak kultura bideetan.

Ogia izerdiaren bidez irabazi bear zela esan zuen arrek, ez zuen ez alperrik adierazi egi aundi ori. Penagarria zera da, batzuk, lan egin gabe betetzen duela bere sabela, besteak ordea, lan egin arren ezin direla iritxi, ez jatera ez edatera, eta ez lo egitera.

Ludi zabalean beti izango ziran noski, gizon lodi eta meiarrak. Kanpoko itxura orrek ordea, ezer gutxi adierazten dit. Barrukoa geiago maite dut.

RAMON ZAPIRAIN

EUSKAL HIT PARADE

IV iru-illeko zenbaketea

Irabazle «ITXASOKO ERREGE», Algorta'ko «Biotz-Alai» abesbatzak abestua. Onek dira lenengo bostak:

1.—«Itxasoko Errege», disko egillea «COLUMBIA» etxea.

2.—«Dringilin Dron», San Anton abesbatzarena. «Columbia» au be.

3.—«Mesias Sarritan», Lexona'ko «San Juan Bautista» abesbatzak.

4.—«Aurra Seaskan», «Urretxindorrak».

5.—«Markesaren Alaba», «Urretxindorra»

25'eraiño dira zenbaketa onetan sartzen diranak, baiña toki aundirik ez daukagulako ezin doguz danak jarri. 25 lenengo orrein artean Bergara'ko «Urretxindorrak» lau abesti sartu dabez. Gure zorionik beroena. «Columbia» etxeak, ostera, disko geien sartu ditu 25 orrein artean.

«Euskal Meza», urte barruan geien saldu dana izan da. Bestaldeko luraldetara be eldu da, ta bertako disko-etxe batek milla disko atara ditu. Zorionak.

Urtarrillaren amabostekoa

Irabazle «Zure Begiak», Mocedades taldeak abestua, Zarate'tar Mikel'en itzak.

Au da lenengo amarren zenbaketea:

1.—«Zure Begiak», Mocedades taldeak.

2.—«Mesias Sarritan», Lexona'ko San Juan Bautista'koena.

3.—«Orrela Doa Mundua», Jon Enbeita'rena.

4.—«Aurra Seaskan», Urretxindorrak.

5.—Dringilin Dron», San Anton abesbatzarena.

6.—«Markesaren Alaba», Urretxindorrak.

7.—«Ama Begira Zazu», Lexona'ko San Juan Bautista'koena.

8.—«Ekaitza», Benito Lertxundi'k.

9.—«Aurtxoa Seaskan», Luis Mariano'rena.

10.—«Itxaropen Bat», Oleskariak.

Lengo urtean bezela, «Mocedades» taldeak, lenengo amabosteko au irabazi dau, igaz, «O Pello Pello» aregaz, aurten «ZURE BEGIAK» ederragaz. Abesti au, entzuna izan da ainbat tokitan; Goienaga'tar Joxe Anjel abeslari gazteari entzun izan dautsagu, bere diskoan be agertzen da abesti au.

Benito Lertxundi barriro ikusten dogu amar lenengoen artean, «Ekaitza» bere abesti ori ez da barria, baiña uste dogu abesti onek gorago igoko dabela.

Jose Maria Ares Saria

Abeslari gazteen leiaketea. Oneik dira sariketa onetako sei lenengoak:

1.—Euskal taldeetan lenengoa: «Itxaropena», AGUR saria eta arpidetzea irabazi eban.

2.—Euskal bakarkoetan lenena: Lupe Fernández, bemeotarra, Mungi'ko Iñaki jostunaren txapela.

3.—Ereskin jotzailleetan lenena: Jesus M. Santos, auspolaria, Zazpi Kaletako saria.

4.—Euskal bakarkoetan bigarren: Asier Telletxea, bermeotarra, «La Gaceta del Norte» saria.

5.—Ereskinlarietan bigarren: Jabier Etxebarria, auspolaria, Radio Bilbao saria.

6.—Euskal taldeetan bigarren, Saitua Anaiak, deustotarrak.


Zorionak danori, ta datorren urterarte.

Bakidekiñezko eres-batza.—Nok uste izango eban, eta ara or auspo jotzailleak alkartuta eres-batz eder bat osotzen. Loroño'tar Josu'ren ardura pean eta zuzentza ziurrakin, disko au azaldu da. Or, Iparragirre'gandik asi ta Loroño'tar J. M.'ra arte, Bastida, Guridi, Arrue, Alberdi... bitartean dirala, ara euskal-soiñu politenetakoak auspo pillo baten doiño nuertuan. Ta «pillo» esan ba'dogu, guk ez jakiñok orrenbestekoren bat zala uste izan dogu, baiña gaurko auspoak eta lengo erromerietako areik ez dira bat, ta Loroño jaunak lortu dabena, Europa'n lenena, gorengo maillako musikea da.

Abesti barria


Ona emen «Nere Aurtxoa» Egia'tar J. A.'en itzekin abesten dan eresiaren itzak:

Nere aurtxoa, aurtxo polita,
lasto gaiñean ipiñita.
Begiak negarrez, gorputza ikarez,
itaundu bear dautsat
nork itxi daun miñez.
Aurtxo txikia, zoragarria
beretzat daukat naizen guztia.



Elaiak

Mungi'ko jai baten entzun al izan genduzan, eta ain zoragarri abestu ebela-ta, nortzuk diran jakin arte ez gara gelditu. Ta, zuek be jakin dagizuen —izar barri batzuk datoz ba, goruntz— emen jartzen doguz entzun eta jakin doguzanak:



Iru mutil gazte kitarra ta guzti; beste ereskin batzuk be joten dituez. Gazteak, 16, 17 ta 18 urte errezkadan: Bordegarai'tar Kepa, Urkidi'tar Josu M. ta zarrena (?) Lauzirika'tar Alberta. Urtebete be ez da plazara urteten asi ziranetik, ala ta ba ondo gertatuak, irurok dakie ba ereskintzan, solfeoa ondo ta armonia be aurrera; eurak egiten dabez azaltzen dabezan abestiak.

Oraindik ez dira ezagunak, zein-geiago bitan agertu dira: Basauri'n irugarrena ta Lexona'n bigarren sariak irabazi dabez. Badakiez besteen abesti eder asko be abesten, ta abestu be bai, baiña maiteen eta ondoen eurak asmatuak, ta ez dira makalak: «Jaia da nere Errian» naiz «Amatxo» edo «Itxastar baten Gomutak», baita «Etorri Jesus», «Baserri» eta beste pitxi banaka batzuk be. Euskal abesti barriaren aurrelarien lenengo maillan jartzeko bidean doaz, ta laster euren diskoren bat be entzun al izango dozu. Telebiziñoan be agertu dira, ta barriz deituak be bai, Europa zear be eroan gura dabez...

Ekin gogor «ELAIAK».

LOURDES TA XABIER

ALKAR - IZKETAN XVI

Eztabaidakeria dala-ta

—Eztabaidea dala-ta, izan giñoan lengo yardun aldiaren ondoren, euskeldunok orretan mutillak goazala gogoratzen etxeratu ginntzoan.

—Etxekiat beste toki batzuetako barri, baiña gure artean eztabaida bat naiko izaten dok euskel-idazleak ugaritzeko. Alde guztietatik agertuko dozak ta ondo idazten dabenak. Tamalgarriena izaten dok eztabaidea amaituaz batera idazleok ixiltzea.

—Neuk be, bein baiño geyagotan esan yautset ori neure lagunei, eta alde orretatik begiratu ezkero eztabaidea aukerakoa dokala erantzun yaustiek.

—Esan bearrik ez yagok, orretarako «eztabaidakeri» bakoak izan bear yokala. «Keri» ori eztabaidearen gexoa lez dok, atzizki orrek ondo ez yagoan gauza adirazten yok eta, «zorakeri, umekeri, ta gaiztakerin ikusten yoagunez.

—«Keri» ori kendu ezkero, eztabaidea onuratsu izango litzakek, baiña ortxe lorra! Batzuk batez be, burua makurtu baiño edozer gauza egingo lleukiek. Eta lenen eztabaidagaya alde batera itxita, beste gaitik iñon diranak esaten, asten dozak, eta asarretuta amaitzen yabek.

—Ori ez dok gizon lez yokatzea, batez be gaurko egunean bakotxari bere eretxiak agertzeko eskubidea aintzat artzen yakon, edo bear litzakion aldi onetan.

—Baiña, bakik egibilla ez dabillenari ori ez yakok gogoko izaten eta ortxe untzea!...

—Orretan, ez yakiñak, arrokeriak, eta gizabidean atzeratutxo ibilteak zerbait zer ikusi ba-yaukoala uste yoat.

—Niri lagun batek esaten yaustan, gai orretan guk ba-yaukogula ingalandarrakandik zer ikasi.

—Zer dok ba?

—Londres'ko Hyde Park'en, ertz baten, igande goiz guztietan 30'etik 40'ra izlari batzen dozak, bakotxa bere eretxien zabalkundea egiteko. Andrazko, gizonezko, katoliko ta protestante, langille ta irakasle. Bakotxa berak gura dabenari entzuten yoaten dok. Izlari bakotxak talde bat entzulegaz bere asmoak azaltzen ekin, aberatzak dirala-ta, zuzentasunik eza dala-ta, gudean aurka agintarien utsak azaltzen, bizitz onetan betikoa irabazteko zer egin bear dan azaltzen ekin ondoren, alde guztietan erantzuleak sortzen dozak, orreik diñoena ez dabela ziñesten esanaz. Izlariak erantzun eta besteak barriro, eta azkenean, bata ala bestea, zer erantzun ez dakiala gelditzen dokanean onen antzeko erantzunagaz amaitzen yuek: «Nik uste dot gaur arratzaldean eguraldi ona egingo dabela». Ta beste barik eztabaidok amaitzen dozak. Alkarri itz gogorrik esan... edo asarretu!... Bai zera, ori bururatu be ez yakiek egiten...

—Emen ba-yaukoguk olango ikasbide on baten bearrizana, eztabaidakeri ixurria osatzeko.

—Gaurko yarduna askotxu luzatu yoguk eta amaitu egin bearko yoguk.

—Bai, ordua be aurrera yoak eta, agur.

—Agur, urrengorarte.

URIGOITIA

NABARNIZ'TIK OLERKARITZAN

Euskalduna abeslaria dala leku askotan entzun dot, eta ni be orretan nago: Kanpotik serio, barrutik, ostera, biotz aundia, ta alaia.

Zenbat abesti ta bertso goxo galdu ete dira gure mendi tartean! Manterolak, Azkue'k, Aita Donosti'k eta enparauak asko batu ebezan erriaren aotik: batzuk ez onak, baiña bai biotzekoak, eta onek dira gizon egiten dabenak: gauza txikietan ikusten da gizonaren aunditasuna.

Nabarniz'en be, beti izan ei dira olako erri-abeslariak, zarragoen esatez. Nire aldian be ba dagiz, eta batzuk oso onak, «ikasiak» batzuen esatean: Luzio, Arrolako artzaiña «Giputza» (G. B.), «Lekerika Bixko anaiak», etabar.

Egun batean, 1968'ko iraillaren 29'an, Jospa Plaza'ren tabernan gengozan jokoan eta ardau apur bat edaten, errietan oi dan lez, ikusgarri aundirik be ezta egoten-eta. Astia, denporea, orrela igaroten da, naita gazteagoak, orain erri aundietara joan, igandetan.

Jokolari bat, Mugira'tar Isidro zan: Gizon ona ta zintzoa iñor ba'da. Isidro umetatik ezagutzen dot, auzune batekoak gara-ta: isilla, beargiña ta begira nundik... bertsolaria. Ez nenkian bertsorik egiten ebanik, baiña, ez dakit zelan, nun diñostan ba-eukazala alako asmakizun batzuk, neguko egun illunetan egiñak, edo oean sartuta, lo-egin eziñik egoanean asmatuak. Abestuteko esan neutson, ba Isidro'ren bertsoak, abestutekoak ziran guztiak. Eta arek abestuala, banan-banan danak artu neutsozan, doiñu ta guzti.

«AGUR» aldizkarian, erriarena dan ezkero, eta gure bertsolari au errikoa, ta lagun aundia, ona emen bere bertsoen arteko batzuk, Nabarniz'en euskereari egiten yakozan laburtzeakaz eta guzti:

Mundu guztien
dago telebisiue
andik artzen dauskue
guri lesiue.
Birjiñari egiteko
gaur orasiue,
onen-onena dogu
egun errosariue.

Nabarniztar da Aulestiako
neure entzule maitiak
jai egunetan zabalik dautez
ortxen eleizako atiak:
Errosariu errezatutzen
lau kristau eta umiak
makillarikan ez al'du artzen
orko alkate maitiak
espabillauta ipiñitzeko
neskatxa eta mutillak.

Mendi gañera urten-da
zutik egin jarri.
Andik agiriko dira
nunbait ainbat erri.
Jesukristok zeru goitik
begira danori:
ez egin pekatu mortalian
zein geran erori.

Adar biñe bai'dituztez
mendi gañin auntzak.
Jesukristok batukoitxuz
mundu ontako giltzak.
Atzera gelditzen danak
eukikoitxu ortzak;
ez ditu arin jango
kristauen biotzak.

Andra Mari eguna
ei jaku etorri;
begire naukazue
nabarriztarrori:
bijer egongo dire
gaztiek dantzari,
danok ondo pasatu
egun eder ori.
eskerrak emonagaz
Jaungoiko Jaunari.

Bigarren bertsue
Alkate jaunari,
zorionak emoteko
erri guztiari.
Jan ta edan ongi ein-da,
pasau egun ori,
eta danok erresau
Jesus eta Amari.

Irugarrengo bertsue
abade jaunari:
Forutik ekartzeko
iru sermolari.
Aiek esangotzue-ta,
danok egon adi,
zelanik an goratu
Ama Birjiñari.

Gure aita zanak
domeka baten
egindako bearra
illuntzar gañin:
Il egin zitun
ollogorra ta eperra.
Oraindik ona etorriko da
gure semetxo alperra,
kristau guztiei emon egiten
satisfazio ta gerra;
mundu zakarrak euki izan dau
ontan premiña gogorra.

Goikola'ko txakurrek
izena du «Terri»:
etxe aurrien etzunda
egoten zan sarri
An bierrin ibilli zan
Isidro «belarri»,
baña Dionisiok
ez eutson igarri.

Gipuzkuanuk esaten dautse
neguko illari Ilbeltza:
sarri askotan egin izan dau
izotza ta aizotza.
Eurije ta denporalekin
negu gogor eta beltza,
aurtengo ontan berotu dezan,
bota Illario iketza.

Asken bertso au, gipuzkoar batzukaz lanean ibilli zanean atara ei eban, berak esan eustanez.

(Oarra: Nabarniz'en, itz askenean jausten dan «je», Prantziko «j»'ren antzekoa da).

PEDRO MARI

gazolin-iturrian
ordaintzeko era-barria
Banco de Vizcaya'ren
Gazolin-Txartelak

Ez daukazu zetan txindiz ordaindu zure belbillaren errekiña.
Banco de Vizcaya'ren Gazolin-txartelak orretarako dira.
Aldean dirurik eroan ez arren be, Gazolin-txartelokin betetzea egingo dozu. Gazolin edo gazolioen eralketak zeatz jakingo dozuz. Ta aldian be aurreratu.

Danori errezagoa ta ariñagoa izango yatzu.
Gazolin-txartelok zuretzat baita saltzaillearentzat be dirua lez dira, ta Banco de Vizcaya'ren edozein lantegitan jaso leike ordaiña.
Itaundu egizu. Ta gaurtik eroan zure txartel-sorte.

BANCO DE VIZCAYA
zure alboan beti

Aprobado por el Banco de España n.° 8469/3

Katalandar Mendi-zaleak ta gu



Ainbat urte dira Katalunya'ko mendi zaleak argitalduten dabezan aldiskari ederrak, kiroldar aldetik begiratuta, irakurten doguzala, eskarrak bertako mendi-zale bazkunai, gure bazkunera geyen baten bidalduten dabezalako. Gure eskuetan izan doguz azkenengo illetan «Centre Excursionista de Catalunya»k illero argitalduten daben «Montanya» aldizkari apaiña. Lotazilla'ko zenbaki ori, «eski» kirolari zuzenduta dago argazki eder ta idazlan sakonez apainduta, baiña, dan-dana azkenengo iragarki guztietaraiño, katalaneraz idatzita eta, beraz, ezin izan dogu nai genduan bestian gozatu gitxi baiño ulertuten ez dogulako katalaneraz.

Lenago, aldizkari ori illa birik illa bira argitalduten eban «Montaña» gaztelera izenaz, baiña, azken aldian guztiguztia idazten dabe katanlan itzkeraz.

Aldizkari ori ulertzen sayatuten giñan bitartean gure mendigoizaleakaz gogoratuten gintzazan, euron tartean darabillen euskera gitxiagaz, naita mendi-zalean artean euneko larogei ta amar euskotarrak izan ta eurotaiko irutik bat euskalduna izan be. Egixa da, giputz mendi-zalean artean ainbat euskera entzuten da, ez bear litzaken beste, baiña, idazkeran? Ba-dira Gipuzkoa'n soraluzetar, elgoibar ta beste bi edo iru bazkunekoak euren mendi-txartelak beintzat euskeraz ta erdaraz idatzite dabiltzenak. Eta, Bizkaia'n?, guk dakigunez Markiña'ko «Artibai» ta Getxo'ko «Itxas-Gane» taldekoak bakarrik ta kitu, beste guztiak erdera zale argitu dira beti ta nonnai, tazelan ez bazkun batetik besterako eskutitz ta artue-emonetan! Benetan erakutsi ederra onetan be katalandarrak emoten dauskuena, aintzakotzat artu geinkena ta bear gendukena.

Iturri onetik jakin dogunez, laster barriz argitalduko dabe urte askoan aldizkari bikaiña izan genduban, «Pyrenaica» ta, ikusiko dogu zenbat idazlan euskeraz argituten diran bertan; zenbaki bakoitzean idazlan bat edo bi?, gaitx izango da geyago. Leenago euzko mendigoizaleak ziran euskera ta euskotasuna baserririk-baserri ta erririk-erri ereiten ebanak; gaur beste ainbeste esatea atsegin izango litzakigu, baiña ezta erraz, ea noiz guzartuten gaitubezan.

* * *

Leenago be noz edo noz esan dogu mendi-zaleak eta batezbere eusko mendigoizaleak euren soiñak arindutea baiño beste zerbait geyago be egin bearrean aurkitzen dirala, naita ona izan soinketa ori: mendiko ibilleratan eusko lurrean daukaguzan jakingarri asko ezagutu ta ezagututen lagunduazo. Orretarako, bazkunetako batzordeak sayatu bear dira mendi egokietatik ibilketak gertuten, eta ainbat onetariko gertuten dabez «Ganguren» taldeakoak eta, zerbait merezi dabenian gu be pozez eurokaz izaten gara: zerbait ikusi, ikasi ta dakigun pitiña gazteagoari eskintzeko.

Urtarrilla'n 23'gn izan genduban orretariko txango polit bat: Elorrio'tik Elgeta'ra bidean aurkitzen dan Pagatza basetxeraiño eldu giñan jende-berebil andi baten, ta bertatik igon gintzazan Erdella mendi gaillurrera, egotalditxu bat egin ta piñu artetik zear doyan bidetik Mendraka auzunera jatsiteko, inguruko San Bartolome baseliza aldamenian diran ill-arriak ikusi ta Argiñeta entzutetsuko antziñako ildegiari ikusi bat emoteko.

Ibilketa laburra aipatu dogun txango au, baiña, atsegingarri izan yaken gazteeri ta, ori ikusiaz guri be bai.

* * *

Mendi-zale bazkun geyenak, orain dabiltz euren urteroko batzarrak, egiten, Ibaizabal ingurukoak beintzat; Lotazilla'n «Baskonia»k euki eban; Urtarrilla'n 16'n «Ganguren» ekoak, eta 23'gn Durango'ko «Tabira» koak. Baita lerro oneik argia ikusi dabeneko, Arrigorriaga'ko «Padura»k be ospatua izango dabe ziurki, beraz, beste idazlantxu baten, batzar orreik dirala-ta, zerbait azalduko dogu, gure AGUR onek kirol orrian baztertxo bat eskeintzen ba'dausku.

ALTUNA'TAR JOSU

LEN ASTO BAT

OIÑ, ZALDI BI!...

Alan da, lagunok. Aintxiñe eztala, basarri etxietara mendiz mendi jun bierra izate zan. Gure osagille edo mediku jaunak, oiñ berrogei urte, edo ez asko gitxiago, burdi bide bat topa eta... pozik!

Basaz-basa, belaunetariñok sartu, eta gora... Zenbat bider au, autu ori subertete zan basarriz basarri ibilleretan.

Onek, basarrixok, mendi onduen edo basamortuetan egozenak, euren gora-beratako euken beti astotxo bat. Azoka, bigarren zapatuko perixa, ezne eta beste osteretako, or beti prest gure «Periko».

Da, oiñ, zer... Periko? Ba-doie apur-apurke arutz. «Zaldi bikotxak», «Lau-eliok», «Erre-zortzixok» eta abar, burrundadan baztarrak erre bierrien, or dabiz mendi gora eta bera. Or dabiz su da zentellok eta barruko diabru iñderrakin ota motzak da larrak erre bai edo erre ez.

Len, neska laguntza be oiñez, oiñ, osta «burrun burrun», maitetzeko be denpora barik...

Burrundadak, bai; baiña arrantza gozorik, ez.

Munduko aurrerapenak be gure astoari eldu jakoz, da, ganera, galtzeko. Lengo astotxoak zelai ederretan, argi eta garbi bizi ziran. Oingo astoak, proban, arri eruten itzaiñ gogor da bizotz bakuak atzetik dizela, akulu, saka, jo, miñ... Asto koitxaduek ez daz suberte oneko...

Gure lengo zarrak, ikusiko ba'leukie gaurko astuen paradero negargarrixe... eta motor zaparradek mendi onduetan, «jemeze» bidetan, mendi tontorretan, esango ben: «Sorginkerixak, diabrukerixak... zer ikusi bier dogu oingo martxan...

Baiña, a arrantza gozo eta mendi aldeko muxika ederra, nun?

Agur, «Periko», nire astotxo lagun ona.

Laster arte.

JUAN JOSE ARRIZABALAGA, «MARKIÑA»

ARTEAGOITIA'TAR JOSU GOTZON

Arteagoitiatar jatorra; gaztea izan arren ondo erakutsi al-izan dau bere jatorria: Anjel'ena ta erandiotarrena, ez da gitxi.

Ekintza onetan lau urte ondo bete barik oindiñok, eta plaza-gizon egin jaku. Berrogei bider trikitiko txapledun, ogeitik gora aurresku txapelak, eta lau, 1968-9-70-71 urte oneitan, aurreskuan, Bizkai'ko txapeldun.

Aititak, adurra dariola emon dauskuz zertzeladok, ta ez da gitxiagorako. Baiña mutikoak berak zer daukan esateko jakin guran, ara:

—Zenbat urte dozak Josu?



—1959'gngo Irallaren 30'ean jaio nintzan, or ba, amabi urte t'erdi laster. Erandio'n jaio naz ta emen egin be egin naz dantzari.

—Noiztik abil dantzaketetan?

—Bost urteko nintzanetik, nere erriko «Umetxo Alaiak» taldean asi nintzan, ta iru urtean ikasi bear ziranak ikasita, aurresku ta trikiti norgeiagoetan sartu nintzan, zortzi urtegaz.

—Ta, egia ete-dok emen jarri yoadazan txapel guzti orreik irabazi dozakana?


—Orreik eta beste txikerragoak be bai, baiña etxean diñoste ez nazala arrotu bear larregian orregaitik, ba, iñoiz, beste batzuk be irabazi dauste-ta.

—Baiña Bizkai'ko aurreskulari txikien txapelketan, lau bider izan az lenen, lau urte oneitan, eten barik?

—Bai; nere alegiñak egiten dodaz, ta balitzake erakusle on-onak daukadazalako be. Beste orrek ez dira txarrak.

—Ala ta be, danak esaten yuek, i lako oin ariñik ez dala aspaldian ikusi, ez etedok egia?

—Ez dakit ba, zuk esaten ba'dozu olan izango da, baiña esan dautzut, nik nere alegin guztiak egiten dodaz, eta gure erakusleak esaten daustanez, puntuari utsik ez egiteko belarri bereziak ei-daukadaz, ta or eidago dantzea garbi aterateko bear izaten dan berezkoa.




—Belarri ona ta buru argia; ez ete-dok dantzaldian abillenean beste ikasketea makaltzen. Zer esaten yuek ire irakasleak?

—Beste aldera, udabarrian udarako gertatzen diardudanean, soiña arindu ala, burua be argitu egiten yatala, esaten dau, lenagoko griego arein antzera. Neguan, geldiago izatetik-edo, danetik astunago izaten nazala.

—Sari ugari orreitatik gogoratzen ete-az zein izan eban pozgarriena?

—Lenengo irabazi nebana, baita txapeldun Bizkai'an izan nintzazanak be, gero, urrunekoa irabaztea; an Tolosa'n igaz, gipuzkoar lagunen artean, alegin biziak egin nebazan, ta lenengo saria be irabazi. Ardu-



ratsuen baiña, aitita ta bere lagunak begira dagozanean egin bear izaten dot.

—Zergaiti ori?

—Aititaren lagunak, serio-serio adarra joten ez diralako makalak, ta utsen bat egin ezkero, gero zer? Baiña danok arro-arro txalotuten nabe irabazten dodanean, ta eurak be erandiotarrak dirala esaten ibilten dira.

—Entzun yautset bai, ta belarriok ondo berotu egin yaustezan, eurak esaten eben guztia ez nebala siñisten esan neutselako. Baiña, zer esaten yok ire aitita Anjel'ek? Ori benetalaria dok.

—Neri, ez arrotutzeko, asko ikasi bear dodala, ta Arteagoitia, beragandik daroadan izan au, goi-goian ipinteko. Baita, bera nere sasoikoa zanean baiño be bizkorragoa nazala. Au, neri ez, etxekoak ez diranei, zuri esan dautzun lez, baiña asko maite nau-ta...

—Egiak dok, orixe esan yaustak neri be, bere antzekoa aizela, baiña obea, ta ez dok, ez, goralpen txikia, larogetamarretan dabillan Anjel aitonaren jaikia ikusita.

UBITZA

ALKAR - IZKETAN XVI

Eztabaidakeria dala-ta

—Eztabaidea dala-ta, izan giñoan lengo yardun aldiaren ondoren, euskeldunok orretan mutillak goazala gogoratzen etxeratu ginitzoan.

—Etxekiat beste toki batzuetako barri, baiña gure artean eztabaida bat naiko izaten dok euskel-idazleak ugaritzeko. Alde guztietatik agertuko dozak ta ondo idazten dabenak. Tamalgarriena izaten dok eztabaidea amaituaz batera idazleok ixiltzea.

—Neuk be, bein baiño geyagotan esan yautset ori neure lagunei, eta alde orretatik begiratu ezkero eztabaidea aukerakoa dokala erantzun yaustiek.

—Esan bearrik ez yagok, orretarako «eztabaidakeri» bakoak izan bear yokala. «Keri» ori eztabaidearen gexoa lez dok, atzizki orrek ondo ez yagoan gauza adirazten yok eta, «zorakeri, umekeri, ta gaiztakerin ikusten yoagunez.

—«Keri» ori kendu ezkero, eztabaidea onuratsu izango litzakek, baiña ortxe lorra! Batzuk batez be, burua makurtu baiño edozer gauza egingo lleukiek. Eta lenen eztabaidagaya alde batera itxita, beste gaitik iñon diranak esaten, asten dozak, eta asarretuta amaitzen yabek.

—Ori ez dok gizon lez yokatzea, batez be gaurko egunean bakotxari bere eretxiak agertzeko eskubidea aintzat artzen yakon, edo bear litzakion aldi onetan.

—Baiña, bakik egibilla ez dabillenari ori ez yakok gogoko izaten eta ortxe untzea!...

—Orretan, ez yakiñak, arrokeriak, eta gizabidean atzeratutxo ibilteak zerbait zer ikusi ba-yaukoala uste yoat.

—Niri lagun batek esaten yaustan, gai orretan guk ba-yaukogula ingalandarrakandik zer ikasi.

—Zer dok ba?

—Londres'ko Hyde Park'en, ertz baten, igande goiz guztietan 30'etik 40'ra izlari batzen dozak, bakotxa bere eretxien zabalkundea egiteko. Andrazko, gizonezko, katoliko ta protestante, langille ta irakasle. Bakotxa berak gura dabenari entzuten yoaten dok. Izlari bakotxak talde bat entzulegaz bere asmoak azaltzen ekin, aberatzak dirala-ta, zuzentasunik eza dala-ta, gudean aurka agintarien utsak azaltzen, bizitz onetan betikoa irabazteko zer egin bear dan azaltzen ekin ondoren, alde guztietan erantzuleak sortzen dozak, orreik diñoena ez dabela ziñesten esanaz. Izlariak erantzun eta besteak barriro, eta azkenean, bata ala bestea, zer erantzun ez dakiala gelditzen dokanean onen antzeko erantzunagaz amaitzen yuek: «Nik uste dot gaur arratzaldean eguraldi ona egingo dabela». Ta beste barik eztabaidok amaitzen dozak. Alkarri itz gogorrik esan... edo asarretu!... Bai zera, ori bururatu be ez yakiek egiten...

—Emen ba-yaukoguk olango ikasbide on baten bearrizana, eztabaidakeri ixurria osatzeko.

—Gaurko yarduna askotxu luzatu yoguk eta amaitu egin bearko yoguk.

—Bai, ordua be aurrera yoak eta, agur.

—Agur, urrengorarte.

URIGOITIA

NABARNIZ'TIK OLERKARITZAN

Euskalduna abeslaria dala leku askotan entzun dot, eta ni be orretan nago: Kanpotik serio, barrutik, ostera, biotz aundia, ta alaia.

Zenbat abesti ta bertso goxo galdu ete dira gure mendi tartean! Manterolak, Azkue'k, Aita Donosti'k eta enparauak asko batu ebezan erriaren aotik: batzuk ez onak, baiña bai biotzekoak, eta onek dira gizon egiten dabenak: gauza txikietan ikusten da gizonaren aunditasuna.

Nabarniz'en be, beti izan ei dira olako erri-abeslariak, zarragoen esatez. Nire aldian be ba dagiz, eta batzuk oso onak, «ikasiak» batzuen esatean: Luzio, Arrolako artzaiña «Giputza» (G. B.), «Lekerika Bixko anaiak», etabar.

Egun batean, 1968'ko iraillaren 29'an, Jospa Plaza'ren tabernan gengozan jokoan eta ardau apur bat edaten, errietan oi dan lez, ikusgarri aundirik be ezta egoten-eta. Astia, denporea, orrela igaroten da, naita gazteagoak, orain erri aundietara joan, igandetan.

Jokolari bat, Mugira'tar Isidro zan: Gizon ona ta zintzoa iñor ba'da. Isidro umetatik ezagutzen dot, auzune batekoak gara-ta: isilla, beargiña ta begira nundik... bertsolaria. Ez nenkian bertsorik egiten ebanik, baiña, ez dakit zelan, nun diñostan ba-eukazala alako asmakizun batzuk, neguko egun illunetan egiñak, edo oean sartuta, lo-egin eziñik egoanean asmatuak. Abestuteko esan neutson, ba Isidro'ren bertsoak, abestutekoak ziran guztiak. Eta arek abestuala, banan-banan danak artu neutsozan, doiñu ta guzti.

«AGUR» aldizkarian, erriarena dan ezkero, eta gure bertsolari au errikoa, ta lagun aundia, ona emen bere bertsoen arteko batzuk, Nabarniz'en euskereari egiten yakozan laburtzeakaz eta guzti:

Mundu guztien
dago telebisiue
andik artzen dauskue
guri lesiue.
Birjiñari egiteko
gaur orasiue,
onen-onena dogu
egun errosariue.

Nabarniztar da Aulestiako
neure entzule maitiak
jai egunetan zabalik dautez
ortxen eleizako atiak:
Errosariu errezatutzen
lau kristau eta umiak
makillarikan ez al'du artzen
orko alkate maitiak
espabillauta ipiñitzeko
neskatxa eta mutillak.

Mendi gañera urten-da
zutik egin jarri.
Andik agiriko dira
nunbait ainbat erri.
Jesukristok zeru goitik
begira danori:
ez egin pekatu mortalian
zein geran erori.

Adar biñe bai'dituztez
mendi gañin auntzak.
Jesukristok batukoitxuz
mundu ontako giltzak.
Atzera gelditzen danak
eukikoitxu ortzak;
ez ditu arin jango
kristauen biotzak.

Andra Mari eguna
ei jaku etorri;
begire naukazue
nabarriztarrori:
bijer egongo dire
gaztiek dantzari,
danok ondo pasatu
egun eder ori.
eskerrak emonagaz
Jaungoiko Jaunari.

Bigarren bertsue
Alkate jaunari,
zorionak emoteko
erri guztiari.
Jan ta edan ongi ein-da,
pasau egun ori,
eta danok erresau
Jesus eta Amari.

Irugarrengo bertsue
abade jaunari:
Forutik ekartzeko
iru sermolari.
Aiek esangotzue-ta,
danok egon adi,
zelanik an goratu
Ama Birjiñari.

Gure aita zanak
domeka baten
egindako bearra
illuntzar gañin:
Il egin zitun
ollogorra ta eperra.
Oraindik ona etorriko da
gure semetxo alperra,
kristau guztiei emon egiten
satisfazio ta gerra;
mundu zakarrak euki izan dau
ontan premiña gogorra.

Goikola'ko txakurrek
izena du «Terri»:
etxe aurrien etzunda
egoten zan sarri
An bierrin ibilli zan
Isidro «belarri»,
baña Dionisiok
ez eutson igarri.

Gipuzkuanuk esaten dautse
neguko illari Ilbeltza:
sarri askotan egin izan dau
izotza ta aizotza.
Eurije ta denporalekin
negu gogor eta beltza,
aurtengo ontan berotu dezan,
bota Illario iketza.

Asken bertso au, gipuzkoar batzukaz la
nean ibilli zanean atara ei eban, berak eu
eustanez.

(Oarra: Nabarniz'en, itz askenean jau
ten dan «je», Prantziko «j»'ren antzekoa da

PEDRO MAR

gazolin-iturrian
ordaintzeko era-barria
Banco de Vizcaya'ren
Gazolin-Txartelak

Ez daukazu zetan txindiz ordaindu zure belbillaren errekiña.
Banco de Vizcaya'ren Gazolin-txartelak orretarako dira.
Aldean dirurik eroan ez arren be, Gazolin-txartelokin betetzea egingo dozu. Gazolin edo gazolioen eralketak zeatz jakingo dozuz. Ta aldian be aurreratu.

Danori errezagoa ta ariñagoa izango yatzu.
Gazolin-txartelok zuretzat baita saltzaillearentzat be dirua lez dira, ta Banco de Vizcaya'ren edozein lantegitan jaso leike ordaiña.
Itaundu egizu. Ta gaurtik eroan zure txartel-sorte.

BANCO DE VIZCAYA
zure alboan beti

Aprobado por el Banco de España n.° 8469/3

Katalandar Mendi-zaleak ta gu



Ainbat urte dira Katalunya'ko mendi zaleak argitalduten dabezan aldiskari ederrak, kiroldar aldetik begiratuta, irakurten doguzala, eskarrak bertako mendi-zale bazkunai, gure bazkunera geyen baten bidalduten dabezalako. Gure eskuetan izan doguz azkenengo illetan «Centre Excursionista de Catalunya»k illero argitalduten daben «Montanya» aldizkari apaiña. Lotazilla'ko zenbaki ori, «eski» kirolari zuzenduta dago argazki eder ta idazlan sakonez apainduta, baiña, dan-dana azkenengo iragarki guztietaraiño, katalaneraz idatzita eta, beraz, ezin izan dogu nai genduan bestian gozatu gitxi baiño ulertuten ez dogulako katalaneraz.

Lenago, aldizkari ori illa birik illa bira argitalduten eban «Montaña» gaztelera izenaz, baiña, azken aldian guztiguztia idazten dabe katanlan itzkeraz.

Aldizkari ori ulertzen sayatuten giñan bitartean gure mendigoizaleakaz gogoratuten gintzazan, euron tartean darabillen euskera gitxiagaz, naita mendi-zalean artean euneko larogei ta amar euskotarrak izan ta eurotaiko irutik bat euskalduna izan be. Egixa da, giputz mendi-zalean artean ainbat euskera entzuten da, ez bear litzaken beste, baiña, idazkeran? Ba-dira Gipuzkoa'n soraluzetar, elgoibar ta beste bi edo iru bazkunekoak euren mendi-txartelak beintzat euskeraz ta erdaraz idatzite dabiltzenak. Eta, Bizkaia'n?, guk dakigunez Markiña'ko «Artibai» ta Getxo'ko «Itxas-Gane» taldekoak bakarrik ta kitu, beste guztiak erdera zale argitu dira beti ta nonnai, tazelan ez bazkun batetik besterako eskutitz ta artue-emonetan! Benetan erakutsi ederra onetan be katalandarrak emoten dauskuena, aintzakotzat artu geinkena ta bear gendukena.

Iturri onetik jakin dogunez, laster barriz argitalduko dabe urte askoan aldizkari bikaiña izan genduban, «Pyrenaica» ta, ikusiko dogu zenbat idazlan euskeraz argituten diran bertan; zenbaki bakoitzean idazlan bat edo bi?, gaitx izango da gerago. Leenago euzko mendigoizaleak ziran euskera ta euskotasuna baserririk-baserri ta erririk-erri ereiten ebanak; gaur beste ainbeste esatea atsegin izango litzakigu, baiña ezta erraz, ea noiz guzartuten gaitubezan.

* * *

Leenago be noz edo noz esan dogu mendi-zaleak eta batezbere eusko mendigoizaleak euren soiñak arindutea baiño beste zerbait geyago be egin bearrean aurkitzen dirala, naita ona izan soinketa ori: mendiko ibilleratan eusko lurrean daukaguzan jakingarri asko ezagutu ta ezagututen lagunduazo. Orretarako, bazkunetako batzordeak sayatu bear dira mendi egokietatik ibilketak gertuten, eta ainbat onetariko gertuten dabez «Ganguren» taldeakoak eta, zerbait merezi dabenian gu be pozez eurokaz izaten gara: zerbait ikusi, ikasi ta dakigun pitiña gazteagoari eskintzeko.

Urtarrilla'n 23'gn izan genduban orretariko txango polit bat: Elorrio'tik Elgeta'ra bidean aurkitzen dan Pagatza basetxeraiño eldu giñan jende-berebil andi baten, ta bertatik igon gintzazan Erdella mendi gaillurrera, egotalditxu bat egin ta piñu artetik zear doyan bidetik Mendraka auzunera jatsiteko, inguruko San Bartolome baseliza aldamenian diran ill-arriak ikusi ta Argiñeta entzutetsuko antziñako ildegiari ikusi bat emoteko.

Ibilketa laburra aipatu dogun txango au, baiña, atsegingarri izan yaken gazteeri ta, ori ikusiaz guri be bai.

* * *

Mendi-zale bazkun geyenak, orain dabiltz euren urteroko batzarrak, egiten, Ibaizabal ingurukoak beintzat; Lotazilla'n «Baskonia»k euki eban; Urtarrilla'n 16'n «Ganguren» ekoak, eta 23'gn Durango'ko «Tabira» koak. Baita lerro oneik argia ikusi dabeneko, Arrigorriaga'ko «Padura»k be ospatua izango dabe ziurki, beraz, beste idazlantxu baten, batzar orreik dirala-ta, zerbait azalduko dogu, gure AGUR onek kirol orrian baztertxo bat eskeintzen ba'dausku.

ALTUNA'TAR JOSU

LEN ASTO BAT

OIÑ, ZALDI BI!...

Alan da, lagunok. Aintxiñe eztala, basarri etxietara mendiz mendi jun bierra izate zan. Gure osagille edo mediku jaunak, oiñ berrogei urte, edo ez asko gitxiago, burdi bide bat topa eta... pozik!

Basaz-basa, belaunetariñok sartu, eta gora... Zenbat bider au, autu ori subertete zan basarriz basarri ibilleretan.

Onek, basarrixok, mendi onduen edo basamortuetan egozenak, euren gora-beratako euken beti astotxo bat. Azoka, bigarren zapatuko perixa, ezne eta beste osteretako, or beti prest gure «Periko».

Da, oiñ, zer... Periko? Ba-doie apur-apurke arutz. «Zaldi bikotxak», «Lau-eliok», «Erre-zortzixok» eta abar, burrundadan baztarrak erre bierrien, or dabiz mendi gora eta bera. Or dabiz su da zentellok eta barruko diabru iñderrakin ota motzak da larrak erre bai edo erre ez.

Len, neska laguntza be oiñez, oiñ, osta «burrun burrun», maitetzeko be denpora barik...

Burrundadak, bai; baiña arrantza gozorik, ez.

Munduko aurrerapenak be gure astoari eldu jakoz, da, ganera, galtzeko. Lengo astotxoak zelai ederretan, argi eta garbi bizi ziran. Oingo astoak, proban, arri eruten itxaiñ gogor da bizotz bakuak atzetik dizela, akulu, saka, jo, miñ... Asto koitxaduek ez daz suberte oneko...

Gure lengo zarrak, ikusiko ba'leukie gaurko astuen paradero negargarrixe... eta motor zaparradek mendi onduetan, «jemeze» bidetan, mendi tontorretan, esango ben: «Sorginkerixak, diabrukerixak... zer ikusi bier dogu oingo martxan...

Baiña, a arrantza gozo eta mendi aldeko muxika ederra, nun?

Agur, «Periko», nire astotxo lagun ona.

Laster arte.

JUAN JOSE ARRIZABALAGA, «MARKIÑA»

ARTEAGOITIA'TAR JOSU GOTZON

Arteagoitiatar jatorra; gaztea izan arren ondo erakutsi al-izan dau bere jatorria: Anjel'ena ta erandiotarrena, ez da gitxi.

Ekintza onetan lau urte ondo bete barik oindiñok, eta plaza-gizon egin jaku. Berrogei bider trikitiko txapledun, ogeitik gora aurresku txapelak, eta lau, 1968-9-70-71 urte oneitan, aurreskuan, Bizkai'ko txapeldun.

Aititak, adurra dariola emon dauskuz zertzeladok, ta ez da gitxiagorako. Baiña mutikoak berak zer daukan esateko jakin guran, ara:

—Zenbat urte dozak Josu?



—1959'gngo Irallaren 30'ean jaio nintzan, or ba, amabi urte t'erdi laster. Erandio'n jaio naz ta emen egin be egin naz dantzari.

—Noiztik abil dantzaketetan?

—Bost urteko nintzanetik, nere erriko «Umetxo Alaiak» taldean asi nintzan, ta iru urtean ikasi bear ziranak ikasita, aurresku ta trikiti norgeiagoetan sartu nintzan, zortzi urtegaz.

—Ta, egia ete-dok emen jarri yoadazan txapel guzti orreik irabazi dozakana?


—Orreik eta beste txikerragoak be bai, baiña etxean diñoste ez nazala arrotu bear larregian orregaitik, ba, iñoiz, beste batzuk be irabazi dauste-ta.

—Baiña Bizkai'ko aurreskulari txikien txapelketan, lau bider izan az lenen, lau urte oneitan, eten barik?

—Bai; nere alegiñak egiten dodaz, ta balitzake erakusle on-onak daukadazalako be. Beste orrek ez dira txarrak.

—Ala ta be, danak esaten yuek, i lako oin ariñik ez dala aspaldian ikusi, ez ete-dok egia?

—Ez dakit ba, zuk esaten ba'dozu olan izango da, baiña esan dautzut, nik nere alegin guztiak egiten dodaz, eta gure erakusleak esaten daustanez, puntuari utsik ez egiteko belarri bereziak ei-daukadaz, ta or eidago dantzea garbi aterateko bear izaten dan berezkoa.




—Belarri ona ta buru argia; ez ete-dok dantzaldian abillenean beste ikasketea makaltzen. Zer esaten yuek ire irakasleak?

—Beste aldera, udabarrian udarako gertatzen diardudanean, soiña arindu ala, burua be argitu egiten yatala, esaten dau, lenagoko griego arein antzera. Neguan, geldiago izatetik-edo, danetik astunago izaten nazala.

—Sari ugari orreitatik gogoratzen ete-az zein izan eban pozgarriena?

—Lenengo irabazi nebana, baita txapeldun Bizkai'an izan nintzazanak be, gero, urrunekoa irabaztea; an Tolosa'n igaz, gipuzkoar lagunen artean, alegin biziak egin nebazan, ta lenengo saria be irabazi. Ardu-



ratsuen baiña, aitita ta bere lagunak begira dagozanean egin bear izaten dot.

—Zergaiti ori?

—Aititaren lagunak, serio-serio adarra joten ez diralako makalak, ta utsen bat egin ezkero, gero zer? Baiña danok arro-arro txalotuten nabe irabazten dodanean, ta eurak be erandiotarrak dirala esaten ibilten dira.

—Entzun yautset bai, ta belarriok ondo berotu egin yaustezan, eurak esaten eben guztia ez nebala siñisten esan neutselako. Baiña, zer esaten yok ire aitita Anjel'ek? Ori benetalaria dok.

—Neri, ez arrotutzeko, asko ikasi bear dodala, ta Arteagoitia, beragandik daroadan izan au, goi-goian ipinteko. Baita, bera nere sasoikoa zanean baiño be bizkorragoa nazala. Au, neri ez, etxekoak ez diranei, zuri esan dautzun lez, baiña asko maite nau-ta...

—Egiak dok, orixe esan yaustak neri be, bere antzekoa aizela, baiña obea, ta ez dok, ez, goralpen txikia, larogetamarretan dabillan Anjel aitonaren jaikia ikusita.

UBITZA

SAN ANTON DORREKO IRUDIARI

San Anton'go eleizea gustiz ezaguna ta entzutetsua da Bilbo'n eta Bizkai guztian. Bera da alboko ibai gaiñeko zubiagaz batera Bilbo'ko mazmarro-armarria.

Eleiz ondoan, eundaka urteetan Bilbo'ko Udaletxea egon zan, baita «Consulado» eritxon etxea ere. Consulado onek, emengo lantegi-biziera, saleroste ta itxasoketa guztiak zuzenduten ebazan. San Anton'go ormak bustiten dabezan ibaiko ureratik urteten eben itsasontziak, bertako ta erbesteko erri askotan ebezan salerosketak egiteko. Batez ere, Bruselas'ko Azoka edo Lonjakoakaz artuemon aundi-aundia euken.

Ia seireungarren urteuntz doan parroki ontan ba-dira antxiñako irudi eder batzuek. Euretarik bat dorre-gaiñean dagona da. Batzuk, Bilbo'ko aingeru jagolearen irudia dala diñoe, baiña argi-argi dago kristau siñismenaren irudia dala. Ondorengo olerkitxoan, irudi ori zer eta zertako dan agertzen da:

Bilbo'ko San Anton'go
dorrean gain-gaiñe
zaraz irudi maite
aingeru-jagole.

Burdiñazko jantzia,
euskuan gurutze,
begiak estalita
tinko arri-gaiñe.

Zure atzekaldetik
gorago dan luze
oiñaztorratz zorrotza
bilbotarren bake.

Gizaldi antxiñetan
gure errian jabe
igo zendun dorrera,
zaitugu irakasle.


Artxanda ta Serantes
zure aurez-aurre,
ibai, mendi, eleizak,
baita zazpi-kale.

Bilbo'ko lan ta pozak,
guda ta atsekabe,
zure-pean ein dira,
zara ba zaintzaille.

Ibaiz bestealdean
lan ta lan ta neke,
meatzaille gaixoak
laguntzaren eske.

Antxiñako mendeetan
zure oinpe-oinpe,
jartzen ziran bidean
ontzi naiz itsasle.

Eguzkiz eta illargiz
ibaiko ur arte,
zure geriz biguna
bizi ta estalpe.



San Anton'go dorrea
da danon zaintzaille,
oiñaztorratza dozu
oiñaztuen galtze.

Siñismen irudia
dana barru-zale,
gurutzea eskuan,
gogoz gaizkatzaille.

Zaindu meatzariak,
itsastar, langille;
zaindu siñismenean
gizon salerosle.

Zaindu arduradunak,
lugin, arrantzale,
zaindu aspertu barik
zar bezin bai gazte.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

JAKINGARRIAK

Irurogei milloi gizaseme inguru ilten dira munduan urtero; beraz, 1.200.000 astero; 7.200 orduko; 120 minutuko ta 2 segunduko. Lenengo gizaldia amaitu zanean 200 bat milloi bizi ziran munduan; 540 milloi 1.650'gnean; 720 milloi 1.750'gnean; orain eun urte 1.700 milloi; gaur iru milla milloitik gora gara... ta 2.000'gnean sei milla milloiren bat edo izango ei dira.

* * *

Ona gaur munduan diran siñiskerak: katolikoak, 550 milloi; maomarrak, 430 milloi; budatarrak, 400 milloi; indutarrak, 363 milloi; protestanteak, 225 milloi.

* * *

Geien erabilten diran inkuntzak: txinaera, 600 milloik; ingelera, 285 milloik; induera, 180 milloik; españera, 175 milloik; errusiera, 125 milloik; japonera, 100 milloik; bengaliera, 85 milloik; portugalera, 86 milloik; arabera, 80 milloik; parantzera, 72 milloik, ta italiera, 62 milloik.

* * *

Ogetabost milla itxasontzi dabiltz gaur ara ta ona. Euskalerriko itxasontziak be ainbat, naizta euren erriko ezaugarririk erabilli ez. Ainbat euskaldun ikusiko dozuz itxasontzi orreitan. Batzuk kapitanak, beste batzuk makiñistak... sukaldari be ainbat. Amerika aldetik izan nintzanean ainbat euskaldun agurtu nituan eta ordu pozkorrak igaro eurekin.

* * *

Irurogeta amar milloi disko egin ziran lengo urte baten Alemania'n. Ainbeste ez baiña euskeraz be egin dira batzuk eta oso politak eta atsegingarriak: Luis Amilibia'k, Fagoaga'k, Estitxu'k, Basarri'k, Xabier Madina'k, Zorion Egileor'ek eta beste askok euskal abesti ederrak egin dabez. Bardin Gipuzkoa, Laburdi-Zuberoa ta Bizkai'ko abesbatzak eta abesti taldeak, eta Naparroa ta Araba'ko ereslari bereziak, ume-abots ta guzti. Txistua ta auspoakin be euskal eresi ederrak entzun leitekez diskoetan. Eskuratu egizuz zure etxe barruan ordu gozoak izateko.

* * *

Laureun milloi irrati tresna dagoz gaur munduan, gitxi gora-bera. Erdiak inguru Iparrameriketan. Euskalerrian be gitxi ez. Azkenengo baserrian entzungo dozue irrati-otsa. Irrati-emoilleak, emisorak, 12 milla bat. Euskaldunok Loiola'koa entzun oi dogu pozarren. Ez da ain aundia, ain indartsua be ez, baiña bai gozoa, bai maitea, geure-geurea. Orain urte batzuk, Arrate'n be ba-genduan, Segura'n eta Tolosa'n be bai. Noz arte mutututa?

* * *

Irureunetik laureunera dira urrutikuskin-emoille edo estazioak mundu osoan, ikuskin tresnak barriz 200 milloi bai. Noz eukiko ete euskaldunok gurea?

GOIRIA

Eta pakea gogo oneko andra-gizonei

(Jarraipena)

INDOTXINA

Bengala ta Irlanda'ren arazoakaitik, Indotxina aiztuta daukogula dirudi. Ez. baiña: or ditugu eguneroko gudaldiek, andiek edo txikiek, Viet-Nam'en Laos'en edo Kanboya'n. Atzenean esandako Kanboya'n ain zuzen be, egoerea gero ta iraultzailleen aldeago biurtzen da, ta onein suagadien indarpean dago arestian uriburua berbera.

Ez aiztu Tailandia: an, gudari-buru nagusiek, USA'ren babesa dagoala, jaurbidea eurenganatu dabe, iraultzaren leyak austuteko asmoaz, ateko giroaren aurrean bizkor-bizkor dago-ta.

USA'ren jokabieari, urrengo lendakaritzarako auteskundeak eragiten dautse, ta augaitik ezbaizko tajua dauka; gudari geyenak etxeratu arren, onek eztaroa utzite oso batera; egitan, gorritasuna ibitu ba'da (azalez, jakiña) USA, Txina, URSS'en arteko etsaigoakaitik izan da: azken biek, izan be, oldozpen-arloan alkarregaz asarre ibilli ondoren, oraingoan, jaurkera arlora asarreagoek igaro dira.


KROAZIA

Yugoslabia, askok eredutzat arturiko lurraldea, sarri agiri jaku izparringietan: antxe, gizarte-arazoak zuzentzeko bide barriek autean, Turkia ta Austria austurik, eta Errusia barruko guda gogor baten sartuta egoala, Yugoslabia erreiñua edo bakalderria jayo zan, erri guztiak Serbia'ko erregetza-burupean ipiñiaz.

Baiña, Balkan aldeko erriek banakoek dira, benetako banakoek, izkuntza ta gogolantze bereziek dituztela. Onelan, erri baten (Serbia'rena batez bere) aundigurea besteen lepotik egiten da. Guda orokor bien arteko pakealdia edozelan igazirik, guztiek ikusi eben guda barrian ereti bat, zirt edo zart erabagiteko: Alemania'ko gudarozteak Yugoslabia garaitu ebenean, laister sortu zan Kroazia azkatu bat, bere ikurrin gorri-zuri-urdiña jazoaz. Kroazia'k, Alemania'ren magalpean jayo zalako, Hitler'i jarrai bear izan eutson, aren aldi guztietan, bai onetan, bai txarretan.

Onelatxe, Alemania'ren jauskeragaz batera, kroazitarrei zoritxarra etorri yaken. Tito'k, Hitler-aldekoen aurkako mendigudarien buruzagi ospetsuak, USA ta Sobietarren baimen eta ebagi onez, bere agindupean batu ebazan erriak barriro ta gaurdaiño, Yugoslabia berbiztu-arazoaz. Kroazia'ko abertzaliek millaka iges egin bear izan eben erbestera, ta bertan lotu ziranentzat, esames baltz ugari dabil.

Tito'k, benetako komunistea bera (emengo gudean be ibilli zan), Federativna S. R. Jugoslavija edo erri alkartze baten antzera eratu eban, Stalin'ek Errusia letz. Ordutik erri bakotxa Erkala edo Errepublikea da, beraz sei erkal dira, len esandakoek, eta one-



ZAGREB

keratu arren; antxe, Mosku-aldekoa izan baiño len, sarkaldetiko dirupean jarri ta Marx-aburuaren alkar-siñismena apurtutzea gurago izan arren; antxe, munduko alderdi nagusien alboan irugarren egoera idoro arren, antxe bertan egun oneitan, iskanbilla latz-gogorrak izan dira. Jazopen benetan aztunek.

Yugoslabia'k bere oiñarri berezia, auxe: erri askoko estadua izatea, galdu-zorian dakus. Zer gertatu da? Soil-soilik, Erri-batza orren barruan Kroazia jagi dala, Belgrado'ren erdikoikeriaren aurka. Ta onen erantzuna betikoa izan, kroaziar buruzagiek euren burutokiek galdu dabez eta epaikarien aurrera joan bear izan dira; kaleetan ikasleek orren ostez izan dira, ta ertzaiñaren makilpean eurekaz espetxeek bete dira. Gero ta gorriagotuaz arazoa, eztanda batzuk be entzun dira Zagreb'en, Kroazia'ren uriburuan.

Larralde onetan be, beste batzuetan bezela, edestiari begiratu bear dautsagu, oraingo auziek lengoen ondoriek baiño eztiralako. Ikusi dezagun ba:

Ango erriak: Serbija, Kroazia, Slovenija, Bosna-Hercegovina, CrnaGora (Montenegro) ta Makenodija, eslabarra dabe jatorria, gitxien batzuk atara. Seigarren menderako bertaratu ziran, ta laterri izatera elduteke, aldi areitako erresumen menpean jausi (magiarrek, beneziarrek, austriarrek) ta atzenean Turkia'k lotu ebazan bere oin gogor pean.

Emeretzigarren gizaldirako, Turkia'ren izarra ostenduten asi zanean, Errusia ta Austria, lurralde edatu a zati-zatika eurenganatzen alegindu ziran. Gudarik guda, 1878'gnean ta Berlin'go Itunagaitik, Turkia'k Mazedonia bakarrik gorde eban, Serbia'k ta Montenegro'k azkatasuna lortu ebelako, ta Austria'k Kroazia ta Bosnia-Herzegobina arrapatu zitualako.

Danok dakigunez, Bosnia'ko Sarajebo'n Pernando printzearen iltzeagaz, 1914-6-14'en, Lenengo Guda Orokorra asi zan. Onen ostzaz gaiñera Serbia barruan errialde berezi bi dagoz, gitxien bi, Kosovo-Metohija (Pristina) egoaldean (albaniarren antzekoek), eta Vojvodina (NoviSad) edo Serbia garaia iparraldean.

Yalta'n sarkaldekoek eta sobietarrek Erdiko Europa zatitu ebenean, Yugoslabia erdierdizka artu eben, bakotzak % 50'eko zati bana ataraz; au dala-ta, Tito'k, onetan be benetako komunistea, aguro-aguro sarkaldetiko diruperantza jo eban, komunisten arteko anai nagusiari ezetz esanaz. Orduko itz gogorrak!

Alan ta guztiz be, Stalin eta stalinismoil egin ziran, ta Tito ta titoismoa oindiño bizirik ditugu, batzuetan gorriek ikusi ba'dabez be. Baiña Yugozlabia barruan, legezko buruaustea dabe beti. Len letz, Serbia'k Belgrado dauka uriburu, ortik erdikoikeria Serbia'ren Aunditasuna nagusikeri biurtuiñ. Oraingoan, Kroazia'k, Serbia'ren jokabidean kaltea ikusita, bere iritzia azaldu ta gauzak argitu egin dauz. Belgrado'ko agintariek ordea, bildur izan dira aren lengo azkatasuna gogoratuaz, ta gogorkeriakin erantzun dau.

Bestealdetik, Tito'ren jaurbideak, goyenetan onura oparo ekarri ta errien gaiñeko batasuna egiten saiatzean, molokot egin dau Erri-alkartzean 25'gn urteurrenean, beriko banatzeko zemaya jasaten dau gaur Yugoslabia'k. Egitan, Tito joanda geroko egoera buruan eukiaz, so-egille batzuek, zalantzako etorkizuna dakuse, ta euren ustez, angoerri guztien azkatasuna barriz lortzea, biar edo etzi baten, ez da eziña.

Dana dala, kroaziarrek gaur galdetzen ba'dautsee euren buruei zergaitik Belgrado'tiko agintzeak eroaten dabezan; biar ote-dautsee itanduko zergaitik Yugoslabia'ren barruan egon bear diran: ta or dagoz itxaropena ta ikarea.

Kroaziarrek daukee aldia; geroak esa-

ARRIORTUA'TAR ANDER

Izana askoz gogorragoa zan

Eugen Loebel'en idaz-lan au, izen-buru orrekin asten da. Txekoslobakia'ko ministro izana ta gaur Vassar eta Nueva Paltz unibersidadean irakasle degu, ta diño: «Nere amerikano lagunak, 'La Confesión' pelikula ikusita gero, galdera au zuzendu zidaten. Slansky'n izandako auzi ta epaiak ain gogorrak, edo-ta, pelikulan agertzen diran bezin basatiak izan ote ziran? Ain gaizki ta garrazki erabilliak, au da; gizonak abereen gixan gogor eta txarto erabilliak izan ote ziran?»

Loebel'ek jarraitzen du ta esaten, galdera entzutean arrituta gelditu zala. Galdera onen muiña ikusi bait-zuan; alegia, Rusia'n gizonak abere antzo erabilli ta tratatzen ote dituzten: «Erantzun nioen: Arthur London'ek 'La Confesión' pelikulan azaltzen duana, txiki gelditzen zala ango oiñaztatuen ondoan».

Gure solasari jarraiki esaten du, Kapitalista ta Fazisten espetxetan anitz egon izan dala. Baiña, beiñere ez duela aitortu izan. Baiña, Sozialisten espetxe batek, bere kelmena apurtu ta aitortu bearra izan zuela: «London'en zorigaitz personala; Rusia'n, Ungria'n, Bulgaria'n, Polonia'n eta Txekoslobakia'n, aitortzeko beartzen dituzten antzekoa da».

Aitorkuntza auek, Sobietiko «Servicio de Inteligencia» 1919'garren eta 1930'garren urteeta ko guda ondorenean, era ta bide auek, erabiltzen zituzten. Beste geiago esatekorik gabe, Rusia'ko eraketaren zati aundi bat, espetxe ta oiñazkatzea dala ezin uka. Txekoslobakia, era ontara Sobietikoen mendean erori zan. Rusoen egitarautara sartu ez ziralako, saldukeritzat gaitzetsi situzten.

Rusoen estukuntzak bultzaturik, alderdien buruzagiak beren egitamu agintezkoa iruzurtu zuten, gero aberriaren askatasuna ta azkenik beren laguntzailleak gatzetsi zituzten. Slanski'n aginbidezko amalau pertsona gaitzetsiak izan ba'ziran ere, Slansky'a ez bait'ziran amalau pertsona bakarrik epaituak, erri bat baizik!

Rusia'n, Stalin'en diktadura garratza izan zan, iñontzako lasaitasunik gabea, naiz eta bere lagunak aal-dun, goiko maillan egon, «Jruschef» bere orrik'idaztian argi ta garbi agertzen ditu, arriskuak eta «purgak».

Stalin il zanean, alderdiko buruzagitzak neurri batzuk artu zituan; batez ere agintza, gizon baten eskuetara erori ez zedin. Beria (ertzaiñen buruzagi ta Stalin il ondoren, gizonik indartsuena ta altsuena). Erail zuten, alegia, Stalin'en arriskua berriro Rusira sartu ez zedin.

Sortaldean «JRUSCHEFISMOA» etzan ondu ulertu, Sobietikoen askatasuna usten bait'zuten. Aldaketa auek, arauketaren berritzea aurkezten zuten, baiña, ez arauen aldaketarik.

Jruschef'ek Ungria'n egin zuena, Stalinismoaregaz bat zetorren. Egitarau onek jarraitzen du oraindik, Txekoslobakia'an ikuspegi giz-ikaskizuna, Sobietarrentzat keiñada bat biurtu zan. Naiz eta Txekoslobakia errespetatzeko itz-eman aundiak egiñez, Rusia'ko gudariak indarka sartu ta erria zapaldu zuten.

Kondairak erakusten digu, igarotakoegaz ikasi ez duenak, datorrenagaz ikasi bearko duela. Bestalde erakusten digu, egunak doazen eran, erakuskizun auen saria ta gero ta aundiagoa dala.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Gizonaren azkatasuna, elburu ala bide?

Gizonaren duintasuna

Gizonaren duintasuna eta aunditasuna, lurreko izaki guztien artean «adimendun» bera bakarrik izatetik dator. Adimena aukeramenaren zustraya da. Ori dala-ta, adimenik ez daben izakiak ez dabe aukeramenik be, ez da erantzupenik, azkatasun bakoak ez dabe erantzupenik eta. Orrez gaiñera, gizona Yaunaren antz eta irudira egiña dalako eta Bere graziaz betiko zoriontsu izateko egiña dalako, gizonaren duintasuna argiro agertzen da. Eta gizonak, soin eta gogo lortu bear daben osotasunerako, aukeramena, azkatasuna, bear dau, ez elburutzat bidetzat lez baiño.

Gaurko oker guztien zustraya

Gaurko gizarteari begiratuta, gizarteko mailla guztietan naste andi bat ikusten dogu. Naspilla eretxietan, naspilla gurietan, naspilla egiteetan, naspilla bizitzan. Guztiak ago batez autortzen dabe naste ori zuzendu egin bear dala, gauzak beren lekuan ipiñi bear dirala. Zuzendu bear ori guztiok autortzen dogu. Baiña zelan? Bakotxak gura dabena eginda? Ori len baiño naspillago egiteko bidea izango litzake. Azkatasunari mugak ipiñita? Ortxe talde bitan banantzen dira gizonak. Batzuk azkatasuna elburutzat artzen dabe. Orretarako ez da bear mugarik. Azkatasuna neurritu, gitxiagotu, ala zerbait mugatuten daben guztia, eurak diñoenez azpiratu egin bear da. Guzurra dirudi, baiña orixe da «Existencialista» dalako orreik eskatzen dabena. Alan ez dabe nai, Yaungoikorik, sendirik eta azkatasunari muga ipinten dautsenik. «Axe» ori zabaltzen alegiñak egiten diran arren, ori ez dala bidea «zentsuna yoanda» ez dauken edonok daki.

Gizona gizartearentzat ala gizartea gizonarentzat?

Ortxe da kristiñau-irakatsi eta komunismoaren arteko aldea. «Gaurko gizarte eralbenak apurtu daiguzan eta gizonak azkatasun osoa aurkituko dau». Guzur andia komunista errietan ikusten dogunez.

Gizartea gizonarentzat egiña da. Zertarako litzake gizartea gizonaren osotasunerako ezpalitz? Egiz, gizonaren azkatasuna mugatzen dau, baiña ez beste barik, gizonari osotasunera eltzen laguntzeko baiño. Azkatasuna ez da elburua, bidea baiño. Ori dala-ta adimenak neurtu bear dau, eta adimenaren aurka, au da, egiaren aurka doan «modarik» ez da aintzat artu bear, ez legerik, ez eralbenik ez erabagirik gizonaren duintasuren aurka diralako, eta gizonaren gaiñetik Yaungoikoa bakarrik. Gizona «gizonaren» menpean txikitu egiten da eta Yaungoikoaren menpean andi, berari dagokion tokian yartzen dalako.

Azkatasunak ba arautua izan bear dau. Onetan bultziaren antzeko da. Bere burdinbidetik doan bitartean bideztiak ondo doaz, andik urten ezkero, bere burua apurtzeko bakarrik izango da.

Estrukturak

Aldatu bear ei dira gizartea zuzentzeko ta azkatasuna lortu. Onerako aldatzea ondo da, baiña ez gizona «gauza» biurtzeko, makiña baten txinrrinka antzera, gauza ez danean baztertzeko. Gizona adimen barik, azkatasun eta kontzientzi barik, azkatasun (?) utsagaz itxiten dabe, gizon izatearen zustrai barik.

Azkatasuna osotasunerako bide

Ori da kristiñauok aldezten doguna. Azkatasun mugatua, baiña adimen-arauz. Gizartea, aginpidea, ingurumaria, asiera ta eziera, lurreko ondasun guztiak gizonari bere elburua emen eta gero zoriontsu izaten lagungarri izan dakiozan.

Ori da bide bakarra, gaurko asmo zoro, guzur eta oker ta zuzenbagekeri guztiak zuzentzeko. Dana gizonarentzat, gizona Kristorentzat, ta Kristo Yaungoikoa'rentzat. Ori da zuzentasuneko, maitasun eta azkatasunerako bide bakarra. Ortik at, ondamendia.

GAMA

AINU ARRIAREN AZKENA

Saporo, izen ori sarri entzungo zendun atzen egun oneitan. Saporo'n ludi guztiko eski-labankari onenak alkartu dira, neguko edur-leiaketetara deituak. Or, nundik, zure urrutikuskiñean ikusiko dozuzan, eurak eta lurralde areik, danak beteta, danak argiz, apain, eder. Or goitik beera ekiñalean, or eureri txaloka; indarra, edertasuna, gaztetasuna; baltzak, zuriak, gorriak, oriak danak anai kirolaren bidez... baiña etxeko jauna, nun?


Ta ortxe bertan, ta inguruetan, erri zaar batek, Ainu erri gaixoak bere azken arnasak damotzuz. Ez ete-da ikuskin orren ertzen baten agiri? Mukaba, Nibutani, Noborinetsu, Xiraoi, Igaxi-Xizunai, ta Erimo itxas-adarraren iparraldera, Otsu, Birao, Saruru... urietan ia galdu dira japondarren ugaritasun pean. Basoan, Saru ibaia zear eta itxas-ertz lakarretan oraindik iraun dagi Ainu erri zaarrak.

Zazpi milla urtatik gora dira lurralde orretan bizi dirala, eta orain eun bat urtera arte euren buruen jabe, Okaido ugarte osoaren jabe, baita iparraldeko ugarte txikietan be nausi. Arrezkero, japondarren erasoak azpiratuta —errusiarrak jabetuko ete-ziran bildurrez, diñoe— apurka-apurka, galduaz doaz. Gazteak naiago ei-dabe japondarren izakerea eurenganatu ta morroi izan.

Begi biribil, bizartsu, zuriak, ez dabe inguruan, ezta ludi erdia igaro arte euren antzeko enda-seniderik. Noiz eta nundik joan ete-ziram araiño? Eurak ziñesten dabena ba' litz, gauditik, ortzetik etorritako erria da; euren «Aitor» a, Kotan-kara-kamui ortzetik jatsi ei-zan, ta bere gogoragarriak an jarri.

Zer eesango ete-dabe gaur, an goitik bera abiada baten datozan aingeru labankariak ikustean. Euren jainkotxiki barriak dirala ziñestera eldu etelegikez? Ta, naita kirol zuri eder orren aurka izan ez, ta gizarteko leiaketa garbien ekiñaldiak bearrezkoak dirala ziñestu benetan. Ez ete-yake bururatuko labanketa orretan eta orretarako emon dan diru guztiaren zati txiki batek euren erriari, euren umeeri be ainu izaten lagunduko leuskiela?

Gizaseameren zurtasuna azalean bakarrik dagola be esan daikegu: Ark edo orrek, diruagaitik labanketako jolasetan diarduala-ta, etxera bialdu; ez ei-da ba, Jolas-Nagusi Garbien izen onarentzat egoki, dirupetuak jolastea. Ori baiño lotsa geiago bear ei-dogu izan gizasemeok, ta egia da, baiña zearreko lan-sari bat jasoten dabelako orrenbeste iskanbil eta soiñeko urratze ikusi ondoren, lotsatu benetan egin bear, antxe bertan, lanbankarien oski pean, erdi goseak, erdi aaztuta, ilzorian dan erri orrentzat itz bakar bat ez entzutean!



Ta, guk, erri bat suntziten doala ikustean, Auiñamendiko auntz bakanak galtzeak baiño, negar geiago dagigu biotzean.

Ez dakigu euskel-mixiolaririk izango dan inguru aretan, pozik jasoko genduke ba, zerzelada geiagorik, al ba'litz. Bitartean, eduerretan labanka diran orreri begira, ea ainutarren bat ikusteko aukerarik izaten dogun edo euren aldezko itzak entzun.

Ainu izkuntzatik itz batzuk: *atux* = oial baten izena; *txisei* = etxe; *inau* = otoitzerako sarats-zotza; *kotan* = uria edo auzoa; *kamui* = urtzi; *yomande* = artz jainko-txikiaren jaia; *ekaxi* = agurea.

BEIZTEGI'TAR JON



Euskal erriaren lurraldea

Nun den oiñarritua

Euskal Erria Auñamendi mendikateak erdibiturik, Erresuma ezberdin biren menpean dago. Bere luzezabalerak onela dira: Adur ibaiaren itsasoratze lekuan mugatzen da iparraldetik; Anie mendira ta Aragoi'rekin mugara arte luzatzen da sorkaldetik; Santander eta Burgos'eraiño sartaldetik; Ebro ibairaiño egoaldetik, Naparroa'k, Ebro ibaiaren ego aldetik duen lurraldea ezik.

Muga oneik, Euskal Erri bezela aitortu dizkiguten zazpi probintzienak dira. Baiña muga oiek zearo igeskorrak zaizkigu; Errioxa Euskal Erriaren barna ez dagoenik ezin dezakegu iñolaz ere aitortu-ta. Bertako aspaldi-kondairak eta gaur egun geratzen diren toponimia ta folklore aztarrenek argi azaltzen digute Euskal lurra dela. Ez ori bakarrik, beste ainbat lurralde legozke eztabaidarako modukoak.

Euskal Erriak, 200 kilometroko itsasertza du. Aragoi'rekin duen muga ez da berezkoa, eta sarkaldeakoa ere kondairaren eragiñez ezarria. Ta berenez begiratuaz, ez dago lur-itxura bateratsu bat ezta muga ziurrik be Euskal Errian.

Euskal Erriko lur-itxurak

Menditsua, Auñamendi mendikatea, Bizkaia, Gipuzkoa ta Naparroa'ko iparraldea. Itsasertzekoa, Somorrostro'tik asi ta Baiona'ra arte. Legorreko edo kontinentala, Araba ta Naparroa'ren beste zati osoa.

Ezbardintasun eta ugaritasun onek, ala bearrez, asko eragin die alderdi ta bizikerari. Apurka apurka bardinduaz doaz bizikerak, lantegien eragiñez. Orregatik azken eun urteetan asko aldatu da pentsaera. Iparraldeko Euskal Errian gutxi aldatu da, nekazariek eta langilleek Paris alderuntz doaz-eta. Itsasertza kendu ezkero, au turismoaren bultzadaz zertxobait askartu dalako, beste guztia diruz-urritze ikaragarri ta erdikoikeriaren zitalkeriz arras urrituta dago; bear-gorri bizian kontixu, nekazaritza irabazpidea kendu ezkero.

Egoaldean, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n bereziki lantegi edaketa nabarmena nabari da. Alde au bidebatezko lurraldea izanda, ta auxe da bere XVIII menderarteko bakartasun eta urritasunaren arrazoia. Naparroa'k eta Araba'k oraintxe diardue nekazaritzatik lantegitzarako urratsa ematen, euren arau-bide berarizkoai esker.

Euskal Erriaren batasuna iru ezaugarri auetan billa liteke, eta irurak ditugu gaur pizkat illun: Enda, Etnia, Izkuntza, Euskal lurrari beste era batera ere deitu zaio: Euskal arroa (lurbeeratua). Izan ere, Gaztela'ko goizelaia, Aragoi aldea ta Auiñamendi mendikatea garaiago dagoz. Au, izatez, ez da egi osoa, Iparraldean Akitania'ko menditalderaiño da laua.

Euskal Erriko mendiak oraintsu sortuak izan dira; Irugarren (Terziari) aroko toles-aldian dute oiñarria, eta itsaspean izandakoak dira. Ba-da Lenen (Primari) aroko tolesketen aztarrenik ere, Tolosa'tik Endaia'ra bitartean, Altzatzu'tik igaroaz.

Azpia kare-arrizko (kaliza) da Iparraldean, eta Ebro aldean bustiñezkoa biurtzen da. Lur narrarik (jausirik) gerta ez dadin, barriz landatzen da lurralde oietan. Itsasertza beti bere, ibilladi guztian, garaia da.

Egutaro edo egualdi erak: Euskal Errian lau egutaro mota ditugu: Itsas-giroa edo ozeanikoa, Ipar Euskal Errian, Bizkaia ta Gipuzkoa'n. Mediterraneoa, Araba'ko Errioxa'n eta Naparroa'ren egoaldean (Muskaria). Alpetarra, Auñamendietan. Bitarteko giroa, Gazteiz, Orduña, Kartango.

MAISTEBURU

Atun arraitzan Canarias'en

Canarias'ko ureta joaten diran itxas ontziak, ez dira emengo uretan aiña ebiltzen diranak. Canarias urruti dagola iruditzen zaiote emengoeri. Ala ere, 1970'go urtean an arraintzan ebilli ziran ontziak, ondarrabitarrak, motrikoarrak, bermeotarrak, lekeitiokoak izan dira. Guzira dozenen bat ontzi. Ala ere, ur aietan beste erbesteko ontziak ebiltzen dira, japones, ruso, portuges, frantzez, italiano, ta abar. Frantzesak ostea, palangreakin alajaiñetan!...

An arrapatzen dituzten arraiak, atunak, lanpuak eta txipiroiak izan dira. Zer esanik ez dago, iru arrai klase oietatik, lenengo garestiena txipiroiak dirala. Baita ere, atun aundiak oso ongi ordaintzen dituzte. Ordainketa oiek ordea, ez izan balio duten neurrikoak. Zergatik ori? Zergatik izango da: an dauden erosleak iru edo lau erosle bakarrik diralako ta auek berak nai duten prezioak ematen dizkiotelako. Monopolio bat ba'lute bezela.

Aurtengo kostera, Kantauri'koa, iñoiz baiñon obeagoa izan dute emengo arrantzaleak. Arrantza oiek bukaturik abenduaren aurrenetan, Canarias ureta joan ziran; emengo ontziak dagonillaren lenengo egunetan ziran. Orrek esan nai du, emen artean atunak arrapatzen zeundela, ta emengo arraintzak utzirik ara joa. Zergatik ori? Zergatik izango-da, dagonillak azken egunak dituanean emengo atunketak gutxitzen asten diralako.

Zer irabazi dute aruntz joan ziran ontziak? Batekoz beste, albisteak irakurri ditugunez, arrantzale bakoitzak illeko AMAR MILLA PESETA. Ori ez izan ordea ugari! Gaur egunean sendi bakoitzak amar milla pesetakin bizibide exkaxa daukalako.

Kontu egizu, urrutietako ebillerak, gasoil ta janariak garesti irtetzen zaizkiotelako. Ango arrai ordainketak exkaxak diralako, ta beste orrelako laztasunak daudelako.

Bestaldetik ostera, ontzi auek ez daude an bear dan bezela arraintzan ebiltzeko. Txikiak diralako, ta ez daudelako gaurko egunean bear diran bezela antolatuak. Neberak aundiagoak bear dituzte, gas-oil tankeak berdin ta abar. Ur aietara joateko ontzi aundiagoak bear dituzte oraingo adelantu ta guzi. Beraz, euskaldun arraintzaleak ez daude arako egiñak, onerako baizik.

Kantauri'ko portuetan, guziok dakigun albisteak dira, alegia, atunen prezioak. Emen asieran ordainduaz 40-45 peseta kiloko. Canarias'en ostera, txipiroiak 50 peseta kiloko, listado edo lanpuak 15 peseta, Atunak... 25 peseta, ta azkenik atun egaluxeak 30.

Orra or garbi ikusi, ze nolako merke erosten duten «Merkader» oiek. Berri oiek naiko ez dirala, izaten dira itunak ere. Igazko urtean «AKARREGI BERRIA» ontzia galdu zan. Bertan zebiltzan arraintzaleak, zer irabazi zuten? Ontzi jabe orrek zer? Urrutieta joateko ontziak ez dira oiek. Nik, dakitelako esaten det emen. Ur oietatik barrena joana naiz orain ogetaka urte amerika bidean. Egia esateko, gure orduko joate arek, emen ez du lekurik idazteko, luzeegi izango dalako. Gure ontziak sei tonelada zeuzkanez... bai-dakit nola eldu giñan ameriketako lurraldera!...

Esan nai nukena da, or Canarias ta Afrika'ko uretan, askotan egualdi latzak egoten dirala. Gu igaro giñan il artan naiz ta dagonilla izan, Ipar aizea oso aserre zegon. Eskerrak aize ura atzetik genduana, bestela!...

Zer egin bear due aurrerantz emengo arraintzaleak? Ba, Canarias aldera joan nai ba'du, ontzi aundiagoak egin, bestela emengo uretan arraintzan ebilli. Ez al zaizu naiko emengo kostera? Emen, asi Otsaillan antxo arraintzan, gero berealan asi San Pedro egunetan atunetan, ta beatzi illabetean naiko lan egiten dezute, geroko iru illabete oiek etxean patxaren egoteko, orrela nekeak berdintzeko. Iru illabete geldi, luze dirala esango askok. Bai ala da, baiñon ongi duten bear-bearrekoak dira. Bien bitartean ontzia apaindu, makiñak antolatu ta sareak konpondu.

Aurten getariarrak eta oriotarrak oso kostera ona izan dutela entzun degu emen. 60'tik 130 milla pesetara irabaziak dira. Orrek esan nai du, iru illabete ta erdiko irabazpidea, illeko 20 milla edo 30 milla pesetakoa izan dutela. Begira orain Canarias'ko irabazpideari. An 10 milla pesetakoa illean... Beraz, zertarako joan aruntz?


Emen arraintzan ebiltzen diran bitartean, amar egun edo amabi egun barru etorri oi dira etxera, arraiak ateratzera, gero saltzeko. Etxean dagon emaztea, edo-ta, semeak, aita ikusteko almena bai du. Canarias'tik, noiz eldu etxekoak ikustera?... Kontu egin zagun, baldin Canarias'en irabaziko ba'lute illeko 40 milla peseta... ordun besterikako albistea izango litzake, bai ñon, amar milla pesetagatik illean an... obeki ez joatea.

Zein dira, ango erosle monopoli zale oiek, arraia garestiago ordaintzen ez ba'dute beintzat...

E. OZKIN

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA



Euskal-jakintzaren egarriz bizi ba'zara, one emen alboan, sakel-neurriko idazti politetan irarrita:

Arana-Goiri'ren	**ZENBAKETEA**
Azkue'ren	**IPUIÑAK ETA MORFOLOGIA**
Kanpion'en	**EDESPENAK**
Arbelaitz'en	**IZTEGIA**
Iztueta'ren	**DANTZAK**
Garmendia'ren	**IZTUETAK AGERTU BAKOAK**
Peña-Santiago'ren	**GIPUZKOA iru aletan**
Gilarte'ren	**JUANA DE ASBAJE**

Eskatu «La Gran Enciclopedia Vasca» ra.

Apartado núm. 1.510. BILBA O

IX Bertsolari gazteen leiaketea

LOIOLA TA DONOSTI'KO ERRI-IRRATIETAN

Berandu jaso gendun barri au, aurreko zenbakian agertzeko, ta ale au be zuen eskuetara eldu orduko, erdia baiño geiago emona izango da. Joan zan igandean, il onen 6'gnean bertsolari bik euren saioa bigarrenez egiña izango eben. Idiazabal'go Florentino Goiburu'k eta Eusebio Ibarzabal gabiritarrak.

Baita eraiñegun, il onen amairugarrenean, ta ziurki gure ale au zuek jaso baiño lenago, beste lauk ere beteko zuten eurena: «Zestua'ko «Lilibe»k, eibartar Narbaitza'tar Jon'ek (igaz txapeldun Errenderi'n), Berrobi'ko Fermin Muñoa'k eta Santi Zabala lezotarrak.

Datorran 20'gnerako beste laurak geratzen dira, daneri entzun al izan ba'dautsezu, emon zure autarkia nor izan dan onena zure iritziz esanaz, ta arin bota zuzenbide onetara: BERTSOLARI GAZTEEN LEIAKETEA, LOIOLA'KO ERRI-IRRATIA, AZPEITIA, Gipuzkoa.

Jakin ez, aurretik, eta entzun ez ba'dautsezue, ez emon autarkirik, jakiña, baiña oindiñok, il onen 20'gnean, eguerdiko ordu-batean asita, Loiola ta Donosti'ko Erri-irratietan entzun al izango dozue lenengo atalaren azkena ta bertatik jakin, zer, nola ta nun izango dan txapelketa onen azken saioa ta jai nagusia, il onen 28'garrenean.

ASTI'TAR PERNANDA





Itz-Eunduak

(XXII)

Etxebarria'tar Juan Anjel

AGERBIDEA


ZEARRETARA.—A: Zabaltze lana.—B: Konsonante; Urtetsu; Esaizu (ika).—D: Onakoa; Lo egiñez; Gertuan (aa.)—E: Igalia; Kaixo.—G: Edaria; Atzizkia; Bokal bardin bi.—I: Euskal-abizena; Urtetsua (aa.); Ordain bearra (a. a.)—J: Konsonante; Konsonante; Leku artara; Eldu.—K: Erregai; Lo egitekoa (a. a.)—L: Garra; Euskal-abizena; Emea ez.—M: Apurtze otsa; Euri (G); Biribilla.—N: Aizean ibilteko.

GOITIK BERA.—1: Portu; Iges egiñaz.—2: Konsonante; Jatekoa (a. a.); gizengizena.—3: Zara (ika); Eldu; Atzizkia.—4: Irakin otsa; Soin-atala (a. a.)—5: Eguraldi; Otsa; Konsonanteak.—6: Konsonante; Konsonante; Oarpen; Bokal; Bokal.—7: Su ezaugarria; Euskal-abizena; Aurrizkia.—8: Usaimena; Andra izena.—9: Leku aretan (a. a.); Guri dagokiona; Zuk (ika).—10: Txindi; Euskal-abizena; Biribilla.—11: Arteak artuta; Guzti.

XXI'aren agerpenak:

Zearretara = Mendiguren.—A; Zor; Agoko.—Zu; Zatia; iE.—Apa; suaL.—Ep; Gor; D; A.—Ule; Oro; aeK.—R; T; Iia; La.—Bean; Asi.—Il; Alatz; Or.—Dargi; Aul; A.—Errigoitia.

Goitik bera = Aza; Urbide.—M; Upel; Elar.—Noz; Nagi.—Dra; Goi; liG.—I; T; Ori; A; O.—Gai; roA; Tai.—ugaS; Sut.—rO; Udala; lI.—Ekia; Easo; A.—Noelak; Ira.



GOIZNABAR

Goiznabar. Olantxe deritxo oraintsu, Onaindia Abak, gure elederra ornidu dauskun olerki-liburuari.

Olerki-idaztirik eskuetara eldu dakidanean, pozezko zarradea egiten daust biotzak. Poztekoa da, izan be, gero, guztia lorrinduta dakusgun aldi gaikoi onetan ere, gogoaren irudimen-bideak-zear eder eta ona atzematen dakien, banaka bat ba-dirala iakitea. Gai utsa anker eta latza danez-gero, iñoiz baiño bearrekoago dau, ba, giza-gogoak olerkia; bizitzako astuntasunak damotson barru-itsutasuna argitu eta, noizik bein bederen, bere barnera ere begiratu dagian.

Batzuk ez dakie olerkirik datekenik ere. Beste batzuentzat zorakeri utsa. Guretzat, Izadiaren eresi samurrak gogo-entzumenak laztandu daroazkuzanontzat, ostera, nai dauanak nai dauana esango dau, baiña, «agora daroagun ogia» baizen bearrekoa.

Begiekaz dakusgunak gogoa zirkintzen ezpa-dausku, gaiaren ur zikiñetan murgildu-ta itsumustuan gabizalako da. Baiña, noizik-bein gora begiratzen dakian gizasemeak maite izaten ditu Izadiaren eragiñez irudimenari erausitako edertasunak: olerkiak. Olakoxe edertasunez beteriko olerki-liburua eskeiñi dausku, ba, karmeldar olerkari bikain eta idazle eragiñak.

Leentxuago, Muniategi'tar Sabin olerkari irudimentsuak *Bidean Gora* olerki-idaztiaz ase euskun geure oler-miña: Ordu atsegintsuak igaro genduzan onen aapaldi gizakoi, maitetsu eder eta giarratsuetan sarturik: Olerkari benetakoa dogu izan be, gero, Gautegiz'ko seme zintzo au, ta aspertzeke diardu gure elederra apaindu ta edertzen, bai olerkiz eta bai itz-askatuz.

Orain, barriz, Aita Onaindia lagungin eta zintzoaren aapaldietan era guztietako olerkiak gozartu daikeguz: Urtzikoiak, gizatasunezkoak, maitekorrak, gudakoak, aberkoiak eta abar. Gitxi-gitxi ditugu, gurean, olerkari bikain onek baizen ondo ta apain aapaldiak biribiltzen dakianik. Azalez ere guztiz apaiñak ditugu, olerkiok, baiña ez gitxiago mamiñez: Sakonak, kadentasunez igurtziak, bikaiñak, ederrak, atsegingarriak, irudimenez indartsuak eta gogaiz orniduak doguz, ba, Larrea'tik oraintsu urten dauskuen olerkiok. Olerki batzuk, aukeran, luzetxuegiak, bai, olerkari biok. Euskera zeatz, apain eta goitasunezkoa dabille olerkari iator biok. Norbaitek esan daike, bear ba-da, ez dirala egokiak, gizarte-olerkiak ez dirala-ta. Baiña, zer da gizarte-olerkia? Langille ta ugazaben arteko burrukea, ala, gizasemeeri bizitza-zear dagokioezan ioan-etorri ta gora-beera guztietakoa? Langille-ugazaban arteko ioan-etorriak olerkoiak barik narrazak *(prosa-ikoak)* diranez-gero, bertsuetan barik itz askatuan eta esatekoak argi ta garbi esan bearrekoak dira: Burruka orreik bat ere ez dauke, ba, olerkirik. Olerki era au komunisteri bururatu ekien, antza, gogoaren emaieri esia ezarri ta gaikeria *(materialismua)* baiño besterik ez dagokioela, gizonai, azaltzeko, urrean, beste olerki erak gizasemeeri dagokioezanak ez diralakoan-edo.

Olerkia ez dogu, ba, ikusten doguna, ikusiaren eragiñez geure gogo-barruetan nabaitu daroaguna, baiño.

Onaindia Aba ta Muniategi'tar Sabin sein baiño sein olerkari iatorrago, bikaiñago, irudimentsuago ta eledergille eragiñago ditugu, ba, bakoitza bere barrutian.

Zorionak, ba, biori, biotzaren biotzetik!

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN

AU ALEBERRIA!

«Elsa Scheelen». Leentxuagoakoa da izan, baiña auxe sekulako eleberria! Eletxar *kaxkar oni atsa dario alde guztietatik. Euskaltzaindiak saritua da, gero, barau, izan be! Eliz-gizona leendakari dauan bazkunak saritu be egitea olako eleberri zikiña!*

Nik neuk, eneban irakurteko asmurik, eta adiskide batek (abade batek!) itxi ezpa-leust irakurri ere eneban egingo. Neuk erosia izan ba'litz izan, irakurtea amaitu baiño be leen iaurtiko neban surtera, debeku bagako idazleen lanai orixe egin bere egin bear yake-ta.

Suntzitu egin ete iaku, ba, euskaldunak itz egiteko ta idazteko, beti, izan dogun eratasun eta gizontasuna? Ala, guztiari eder eretxita diarduen gitxi batzuen gurari zitalak ontzat artu bear ete-doguz? Ez gizonak! Kristiñau gara ta ezin onartu daikegu kristiñautasuna ta abadeen izakerea ta izen ona nabarmenkiro lorrindu, oinperatu ta zikindu daiken elerti (literatura) zantarrik.

Ardurabako edo kristiñautasuna ontzat ez daukanen batek olako eleberri (nobela) ganorabakoak idazteak enau asko arritzen, baiña bai olako zikinkeriak Euskaltzaidiak onartu ta saritzeak.

Euskera mengal, txarto iosia, mordoillua, moldangaitza ta lorriña. Elerti kaxkarra, kakatsua ta gauzeztana. Edestizun (nobela) erkin, zikin, ganorabako, ziztrin eta gogaikarria: Irakurgarri ez dan irakurgai arbuiagarria.

Zikinkerietan murgildu nai dozuen idazleok: Ez uste, gero, olako irakurgai satsuak irakurri nai izateko ustelduta dagoanik gure erria!

Eta, euretariko baten izen ona eletxar *narrazez zikindu-arren be, ixillik gure abadeak!*

AURRAITZ



DEPURACION DE AGUAS S. A.


ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

ARRASATE



ABESBATZAK.—Gure artean itz asko egiten da goratuaz gure «DANOK» Abesbatzatza, eta ondo merezia gaiñera. Baiña esan bearrean naiz ez dala Arrasate'n lenengo ezagutu dana. Bai zan garai baten, orain dirala 40 urte emengo Euzko Gaztediak eratuta eta Markaide'tar Luki erakusle, ta zuzendari pean eta bertako bazkideekin osotuta Abesbatz zoragarri bat. Bere ekiñaldi guztietan oso goratua eta txalotua izan zan. 60'renbat lagunek osatzen zuten.

Markaide jauna, gero lagun apaiz eginda Ego-Amerikan il zan orain dirala amar urte inguru mixiolari zala. Or goian agertzen da Abesbatz orren argazkia. Ortik asko dira gaur bizi ez diranak eta beste batzuk tinko eta gartsu jarraitzen dute lengo asmo on guztiakin. Arrasate beti izan da ereslari zalea eta olan, len be izan omen zan Abesbatza erri ontan, naiz eta nik ez izan bere barririk. Onen geigarri esan bear dut orain dala 75 urte Donostiar Abesbatzak lenengo saioa ementxe bertan izan zuan.

EUSKEL-IDAZLEAK.—Lengo batez AGUR onetan agertu zan argazki bat, Elgoibar'en egin zan Euskel-Idazleen Batzarratzaz. Asmo berau agertu da Abeletxe'k idazle batzukin eta danak ao batez ondo erezten dautse. Nik bere oso ondo derizkiot. Batzar onen erakundea bearbearrekoa izango litzake alkar ezagutzeko eta batasuna sendotzeko, «Erri Bide» ren babesian alkarturik idazten dugun guztiok. Ea bada beste olako «edertasun» arrigarria ospatzen dugun laister.

ETXE BARRIAK.—Aspaldi onetan etxe asko egiten ari dira erri onetan. Auzo barriak alde batera utzita begiratu dezaiegun etxe aundi edo «rascacielos» orreitakoai. Lendik bi dagoz jasota ortarakoak eta euren izenak dira «Izarra» eta «Eguzki». Bakoitzak 15 pisu ditu beetik gora eta 60 bizitza bakoitzak eta etxe bakoitzean 300 biztanle inguru bizi dira. Orretara etxe bi orreitan 600 bizilagun ditu gutxi gora-bera. Beste bi bardiñak jasotzen ari dira eta oneik bukatzerakoan 1.200 bizi lagun artuko ditue lauen artean. Osotza au erri txiki bat egiteko beste izango litzake, eta len bezela egingo ba'litz etxeak, ia 200 etxe bear izango litzakez.

Gure Arrasate'n ia lur gutxi geratzen da etxeak egiteko eta jakiña orain gorantz egin bear. Ez dakigu erriaren azitze au erriaren onerako edo kalterako izango dan, baiña gure euskerak kalte aundia izan duala ezin uka. Arrasatetarrak, jarraitu dezagun iñoiz baiño gogorrago euskera alde gure izkuntz au rascazeloak baiño gorago jasotzen.

ANTZERKIAK.—Emengo «Danok» Alkarteak eratuta antzerti saio batzuk izan ditugu, baiña, neure ustez jai orreik izan diran orduetan ez da egoki ikusi. Gabeko amarrak edo geiagotan izan dira eta gu bezela gabaz ibilteko oiturik ez dogunentzako ordu ez-egokiak izan oi dira. Batez ere emakume ezkonduentzako eta umeak dituanentzako ordu txarrak izan oi dira. Orregaitik nire ustez, egoki litzake igande arratsaldeko lau edo bostak inguruan eraldu ta asko geiago joango litzakela.

Bestealde emon diran antzerki jaiak, ederrak, baiña gitxi batzuentzako izan oi dira. Beraz ezin izango litzake beste antzerki era bat eratzia jende gaeiago batzeko? Zer izango litzake Donostia'ko Declamación Vasca orreitako antzezlariakin egiñeko antzezlan bategaz jaia eratutzea? Esaterako «Mutilzarra» edo olako lan bategaz? Nire eretxia or duzue.

UDALAITZ

Zumaya

ORI ERE BAI!—*Ikusi, entzun eta irakurtzeko danak ez ditugu oraindik, dirudianez, ikusi, entzun eta irakurri.*

Joan dan Abenduaren 12'garrenari dagokion «Zeruko Argia» asterokuan, Zumaya'ko berri emailleak, bere burua «Olarru» izenaz estalita, ango elizkizun bat aipatzen du; «ohitura den bezala, izan dira animetako itzaldiak parrokian...», idazten du.

Beeraxeago, ordea, «oso jende guti» izan dala, dio, eta «hautatik gazterik oso guti». Eta gero: «Zer pentsatua ematen du. Zer esanik ez gaurko munduko nahaspilla hontan zaila egingo zaigula, ZEINEK DUEN BENETAKO ARGIA KATALAGOTZEA: JOATEN DIRANAK ALA EZ DIRANAK».

Bai orixe! Ik diokanez; «zer pentsatua ematen du».

Zer pentsatua, lenengoz, izen eder ori daraman asteroko katoliko batek ori argitaratzea. Eta okerrago oraindik, uste gabez edo argitaldu izan bazuten, urrengo zenbakian zeozer ez esatia. Beraz, itz oiek AINTZAT ARTZIA. Ongi dakigu, norbaitek, uste ta asmorik onenaz, A. Zuzendariari berari adierazi ziola ta. Aitzakirik ez dago bada. Ez da naiko maiz egin oi dutena: orrelako zerbait danian, ustegabekua izan dala eta orren antzeko zer edo zer esan, eta kaixio motell! Len bezela jarraitu.

Zer pentsatua ematen du, bigarren, «Olarru» J. orren iritziak. Baldiñ, jakiña, katolikua ba'da beñepeiñ. Bederatzi egunez Jaungoikuaren itza (txit ongi azaldua gañera), entzutera joaten diranak eta, joan al izan, eta joaten ez diranak, «zeinek duen benetako argia» bereiztea zailla dala? Noiztik motell? Joan izan ba'intzan ez uan orreko kirtenkerik aipatuko. Jesukristo Jainkoak, bere itza entzun eta entzun nai ez dutenaz diona (ezagutuko dek, uste diat), etzetorrek bat ire iritzi sasikristau orrekin. Kristau sentzun apur bat naikua dek ori ikusteko.

Eta nik uste dianez, katolikua ez ba'aiz, berriz, geranoi pakean utzi bear diguk eta aziera on edo edukazio utsez bederik, ixillik egon. Bestela, ire eure burua arrikatzen bait dek eta erabat kankaillutua agertu.

ARRANTZALE

Arratia

NORAIÑO.—Bizkarguenaga'tar A. eta Ibarra'tar Txomin —dimatarra ta arteagatarra— barriketaldi astitsurik izaten daben bakoitzean, puzka purrustaka banatzen dira txakur eta katu egiñik; eta bataren begiak eta bestearen belarriak dindilizka ikusi baiño len, alegindu gaitezan, arratiar guztiok, bakeari argi egiten.

Oraingo dimatarrik asko, Zamakola'ren lukikeriakaz itsuturik-edo, «zamakolista» lez agertzen dira, ta ez arratiar.

Jaiotzez ugelaxo-errikoa (Zeberio) dan Txomin'ek bere, auxe bera esaten dautso aurrean izaten daben eztabaidalari garratzari: «Zu etzara arratiarra, zu zamakolistea zara».

Bizkarguenaga'k ostera, sudurraren ganean erabilten dituan txirringil-burpilleri dantzan eragiñik, eta galdu barik besoz eta agoz itz-egiñik, Arratia nondik noraiño dan azaltzen aleginduten da, Dima bere mugarteko egiñik.

Eta orain, bakearen egarriz, emen izango gara itaun-galdera bi onein erantzun zain.

Ba-da ala ez da Dima Arratia? Zazpi errik ala bederatzik osotuten izan ete-dabe Arratia, oraintzu egiñak izan diran ebaketa-konponketak baiño len?

AGUR.—Izena baizen izate labur-motsa izango ebala uste ebenentzat musturreko ederrena aldizkari errizale onek.

Illero agertzen asi zana amabosteroko egin zan. Ibar-zelaietan nekezko txiki-txaka ibilteari ekin ondoren, ergoientarren etxeetan arrerarik onena izan eban, eta gaur egun... itxasmutil bere ba-da.

«ARGA» itxasontzi aundian bigarren buru dan Intxausti Azarloza jaunaren ezagun eta adizkide bere egin dalarik, amabostero egiten dau joan-etorria Kanarias ugarteetatik; zornontzar euskaldun zintzoari, itxas-azal dantzariaren gaiñean gau ta egun lagundurik.

LANDAJUELA'TAR A.

Tolosa

ATTON.—*Errege egunez, Erregeak Iruña'n utzi zidaten Nerea izenekiko billobatxo bat. Beraz, «Uxola» atton egin dute. Beti gazte izan nai, ta ara emen «errealitatea». Baiñan gizaki bat ezin ote diteke «desdoblatu»? Baiezko ustean «filosofo teknikoa» nabaitu naiz. Aupa filosofia eta filosofoak! «subkoszientea», «koszientea», «desdoblatzea», «el otro to» eta orrelako iz jakintsuak bururatu zaizkit.*

Ez zaitez arritu, beraz, «desdoblatu» gabe gelditu dan «Uxola» gazteak «doblatuta» gelditzen dan besteari, onela mintzatzea: Kaixo Estanis, atton berri orri, Zorionak!

IÑAUTERIAK.—*Egunaren kurpillean laister datozkigu aurtengoak ere. Karrozak eta txantxoak, txarangak eta soiñuak gertatzen ari zaizkigute. Zer esanik ez dago aurtengoak umoretsuak izango ditugula, oitura dan bezela. Gazteria ez degu nai gure jaietan, eria beti «eri» bait-da. Gaztedia nai degu. Eria ez dagoan gaztedi osasuntsu eta umoretsua datorrela jaiotan, izango du jolasteko egokiera ederra-ta.*

MISTERIOZ-MISTERIO.—*Larraitz'koak isats luzea dakar. Iragarkiak edo kartelak «iñoxenteak» arkitu genituan batzuen-batzuek azpitik lan egin zuten beste zeredozerren berri jakin arazteko... Eta oraindik ez dakigu zer gertatu zan. Entzun bai-degu, arestian «Oarguí»n gai oni buruz gazte bat mintzatu dala eta naiko lanaz ibilli ote dan bere burua zuritu eziñik. Bere «klanetik» at, Larraitz'koaren eraitzaille ta jarraitzaille sutsu batzuetan «arropatuaz» edo babesturik, itzaldi onen jakitun izan ziran bakanak ixilik egon bear... Azkenean ere, naiz otsegin «datorrela fraile ori» (akelarrearen urrengo igandez sermoiean aitatu zuan fraile baten izena) alperrik, guztia pake santuan bukatua izango zan...*

Berri-emaille kaxkarrak izango gaituzu urak joanik gero bai-gabiltz...

ORGANISTA BERRIA.—*Mokoroatarrak, On Eduardo lendabizi eta azken urte auetan Iñaki, gure adiskide miñak, eginkizun au bate dute ospe ta izen aundi bat emanaz gure eleiz zarrari. Orain, Iñaki'ri atseden artzeko egunak etorri zaizkio. Eta bere ordez, beste bat izendatu dute: Baltza'tar Salus, gure adiskidea ere.*

Gaztea da, agian ausardi gutxitxo. Ausarditan jartzen ba-zaigu goi-maillak arrapatzeko gaztea degu Salus. Ea, bada, Salus, «pajarita» ta guztiz ekin eta jarrai.

Eta zorionak bioi. Atsedenaldia etorri zaiolako bati, eta lan onurakorrak egiteko zorian ipintzen zaigulako, besteari.

UXOLA

Galdakano

ERRI-IDAZTITEGIAN.—Ainbat urtean egon giñan errian, idaztitegi on bat barik, baiña orain amar urte sortu zan Erriko Etxe'an be-areto zabal baten, erriko Udala ta Bizkai'ko Aldundegi'ko laguntzaz erri-idaztitegi eder ori. Errian asko gintzazan utsune ori sumatsen gendubanak eta, atsegiñez artu zan jakintza-toki orren igirikera, baiña, zaletasunak berak, geyago ala gitxiago irauten daben jakitarren zuzendu gara bere jabole zuzen eta argi jakituna dan Larrea'tar Kuireka irakasleagana itaun batzuk egiteko:

—On Kuireka, pozik artu eban erriak idaztitegi onen igirikerea, erakutsiten emoten ete dau aldi artako zaletasuna?

—Ez bearbada bear litzaken beste, baiña, bai.

—Zenbat bazkide ditu idaztitegi onek?:

—Irureun eta berrogei ta amar.

—Zenbat irakurle inguru?:

—Guk nai genduken baiño gitxiago, baiña; bederatzireun eta ogei ta amar etxetan, igaro dan urtean irakurri dabenak, sei milla ta bosteun eta ogei ta amairu.

—Geyen bat irakurten diran idaztiak?

—Azken giroko ele-berri ta gudatazko idaztiak, baita ikas-liburu asko be.

—Geruago ta gitxiago edo geyago irakurten ete da?

—Geyago, batezbere ikas-idaztiak.

—Ze bilduma, zenbat idazti daukoguz idaztitegi ontan?

—Ziur-ziur ezin dautsut esan oraintxe, ekarri barri doguzan ainbat, zenbakituteko astirik ez du izan eta, baiña ziur lau millatik gora.

—Orrein artean, zenbat euskeraz edo eusko girokoak?

—Ia berreun bai, ta euron artean ainbat euskerazkoak. Ortik gaiñera, ikusten dozun alboko gelatxu ortan aurkitzen dira umetxuentzako, ainbat ipui-aldizkari ta idaztiñu doguz.

—Ederto; jakitun nago batzorde bat dozuela bazkidean artean aukeratua, zeintzuk dira ta zein da orren eginkizuna?

—Aldi baten Batzorde ori ugariagoa izan zan, baiña, aldi ontan batzuk il diralako ta beste batzuk beste errietara biziten juan diralako, txikerra da, iru bakarrik gara; idazkari Sierra'tar Agustin; txindi zain Marin'dar Joseba-Koldo ta ni, eta, erri'ko Endore lez, berau lendakari. Ta batzorde onen eginbearrak, txinditza zaindu, egoki eretxitin dauskuen idaztiak erosi ta abar.

—Bazkidean txindi-laguntza baiño beste laguntzarik ba-dau idaztitegi onek?

—Bai, zetan esan bez Udala'na ta Bizkai'ko Aldundegi'ena; onek batezbere, ainbat liburu bidalduten dauskuz ta ez gitxi eusko girokoak. Eta Udala'k txindiz laguntzen dau.

—Eta, zuk Agustin idazti zale purrukatua zaren orrek, zer dirauskuzu erri,ko irakurleentzat?

—Ba guk, batzordekoak, borondaterik onenaz aukeratuten doguzala bertora dakarguzan idaztiak, batzuetan zorionekoak izaten dira ta beste batzuetan ez, ta beraz, benetan poztuko gintzakez irakurleak adirazoko ba'lizkigue zeintzuk idazti izango litzakezan irakurgarrienak edo ikasgarrienak be.

—Orretara idatziko dogu Agustin. Eta bide batez esango dautsegue gure irakurleari; badala batzorde ortan batonbat euskerazko ta eusko giroko idaztiak benetan maite dabezana ta, beraz, bildur barik eskatu dayezala idaztitegi ortarako lage barruan diran eusko giroko edozein idazti eta bai beste giro batzuetakoak be, idazti onak ba-dira-ta.

OSATEBAKUNTZA.—Bilbo'ko osatetxe baten osatebakuntza eginda aurkitzen da Goiri'tar Bittor gizon gazte euskaltzalea, ta beraz AGUR'en irakurlea. Zorionez ondo doa ta, orrek poztu gaitu bene-benetan.

ERIOTZA.—Urtarrilla'n 23'gn. il zan Jauna'ren Besoetan, Zabala'tar Eusebi itxasgizon, itxas-ontzi-buru jatorra, larogei ta bost urtedun zala. Goyan Bego, gizon jakitun eta kemensua zana.

BASA-JAUN

Barzelona

EKAITZ-UJOLDE ONDAGARRIA.—*308 Landola, ondatuak-10 milla langille, lanpiderik gabe geldituak-Eundaka bizitza-etxeak galduak-136 erri urrutizkiñik gabe geratuak-Ainbat-zubi puskatuak-Millaka abere ta egazti urak eramanak eta 26 persona itoak... Udazkenean, zorigaiztoko euritza ikaragarri ark, Besós, Tardera, Anoia eta Prat ibaiak, bi metroz gaiñezkaturik, galerarik geienez ondatutako erriak, abetxek izan ziran:*

Tarrasa, Sallent, Cornellá, Martorell, Vallés, Santacona, Sabadell eta Prat de Llobregat. Emen, «SEAT» belbil-landola ospetsua, dana ondaturik utzi zuan, atarian zitun eundaka belbillak ur-gaiñean igari ikusten zirala... eta 1962'garren urteko ekaitz-odagarriek erri-erdia urak eraman zuan Rubi, berriz naiko ondatua izan da, ditun iru zubiak urak puskaturik. «SEAT» landolako zortzi milla langilleak, ogibiderik gabe geldituak, oraingoz...

Antzeko okerrak izanik dituzte, egun berean, Tarragona inguruko Granollers, Sant Sadurni, Masnou, Villasar del Mar, Riera eta Esparraguera'n ere, beste ainbat erriren artean. Esparraguera'n erri guzia ondatuaz gaiñera, bertako «Manufacturas Sedo, S. A.». oyal-ol aundia, urak dana eztaldurik, barruko gauza guzik ondaturik utzi zun, milla bat langille langabe utzirik.

Beste orrenbeste edo geiago esan dezakegu, Gerona aldean gertatuagatik ere.

«La Masana», «Güell» eta «Oñar» ibaiak, urak bildurgarriro gaiñezturik, errukarri aurkitu ziran Figueras, Vilovi eta Riudellots'ko biztanleak, etxetako tresnak, abereak eta baratzak guztiz galdurik.

Lendik ere, Gerona'k igaroak ditu egun-larriak, euri-ujolde ondagarriekin; baiña ez, noski, oraingo ontan bestekorik: erri osoak, ondatuak; saleroski-etxeak, desegiñak; ola edo fabrikak, urez eta zaborrez estaliak; bideak, birrinduak; zubiak, etenak; etxeak urik gabe ta urrutizkiñik gabe geratuak; barazkiak, denak galduak; ainbat eta ainbat abere edo ganadu, eta tamalgarriena: persona batzuk ere, urak eramanak...

Au dana gertatu zan egun artako gauean bertan, Madrid'etik bost ministro Barzelona'ratu ziran, guztiz larrituak, emen gertatutako okerrekin. Ortik kontu atera, irakurlea, zenbateraiñokoak izango diran Catalunya'n aipaturiko euri-ujolak egindako kalteak. Baiña, ta... nola ta noizko erremediatu galera guzi abek? Ori galdetzen du emengo jende kaltetuak. (Oneraiño idatzita gero, jakin degu, berriro ondatu dituala Prat de Llobregat eta inguruak, Urrillaren 6'an berriz andik igaro dan ur-ujol kaltegarriak).

Alare, Barzelona'n bertan, Catalunya'ko Uri Nagusi ontan, mirariz bezela ez du kalterik egin, ez aurreko ta ez orain berrizko ujoldun ekaitz-bildurgarriak.

Orri esker, iñolazko oztoporik gabe ikuskatu aal-izan genduzen Barzelona'n ikustekoak diran gaiñekaldeko Monjuit eta Tibidabo josta-leku arrigarriak. Zoragarria, benetan, gaiñ oietatik ikuskatzen dan ikuspegia!

Barzelona'ko, uri-barruan ere, ba-du ze-ikusi ikusgarririk!: Plaza de Cataluña, Rambla de Cataluña, Rambla de los Pájaros, Rambla de las Flores, Zoo, animali enda guzitakoak dauden ikus-tokia, kaya eta sal-eroski aundi ta ospetsuetan: «Jorva», «Sepu» eta «Corte Inglés».

Erakustoki edo Museo ta abar: Mares, Palacio Virreina, Palacio Nacional, Palacio de Música, Omnium Cultural; eta elizarik ikusgarrienetan: la caterdral, La Sagrada Familia, Santa María, El Pino, Santa María del Mar, Nuestra Señora de la Merced, San Pedro de las Cuellas eta Belen. Casa del poeta Verdaguer, Vallvidrera'n, eta EUSKALMEZA izaten dan Eliza, Barzelona'n.

Oik danak ikuskatu genitun, «egualdi txarraren aurpegi ona» jarriaz, Labaien jaunak eta nik... ekaitz-egun ikaragarri aietan.

Aundia da Barzelona! Nun asten dan eta nun bukatzen dan, ez dakiguna, oraindik!

ZELETA

Erri - Erri - Erri - Erri - Erri - Erri -

Irun

AGUR GUREAN.—Bai, emen ere AGUR zaleak ba-gera. Eta geroz ta geiago. Artzaille ta irakurleak ugaritzen dijuazkigu. Bidezko da, beraz, noizik beiñ gure erriaren aipamena emen izatea.

Emendikantxe, bada, nere agurrik gartsuena AGUR zale guztiei.

BURUJABE.—Ditugu Amute eta Mendelu. Elizaz esan nai det. Betiko ametsa izan dute biak burujabe izatea eta iritxi dute. Biak parroki bait dira. Bata Irun'dik eta bestia Ondarrabi'tik etenak.

Amute'k «Asis'ko Prantzisko D.» artu du izentzat, kaputxiñoen mendean egongo da, ta lenengo Artzai, Aita Mario Uitzi Loyarte, napar euskalduna, izendatu dute.

Mendelu'k, berriz, «Mikel Garikoits D.», ta betarramiten menpean jarri dute, ta aurreneko Artzai Aita Jose Gogortza Izagirre, azpeitiarra, izendatua izan da.

Zorionak Amute eta Mendelu'ko elizatarrei, aspaldiko ametsa betea bait dute.

GURE ERRIKO-SEME Manuel Estonba Arruabarrena Jaunak haraipen berri bat lortu duala pozik jakin degu. «Garitaonandia'tar Gotzon Saria» irabazi berria du. Gure txaloak emendikantxe.

Zure erritar idazle koxkor onen zorionik betienak bijuazkitzu! Eta ia noiz zure liburu ori irakurri al izaten degun, gogoa ba dugu ta.

BI MILLA URTE.—Inguruko uri ta illdegi baten aztarrenak arkitu dituzte gure errian. Nun eta irundarrak orren gurea dugun «Ama Xantalen» izeneko baselizatxo azpian.

Lurpeko lanak aurrera dijuazkigu eta diotenez, erromatarren aldiko bi elizen aztarrenak agiri-agirian daude. Bata bestearen gaiñean jasoak. Eta bi oien gaiñean, berriz, gure «Ama Xantalen».

Batere uste eztakua izan da aurkitze au. Lur jotzera zijuakigun elizatxo zaarra zarberritzen asi zitzaizkigun eta ala an azaldu ziran leengo oiñarriak.

URREZKO EZKON - ERAZTUNA.—Galdua du nere aizkide on batek. Ezin etsi du aurkitu gabe. Erri barrenean galdu dualakuan dago, ez daki ziur nun baiño.

Iñork aurkituko baldiñ ba'lu, deitu beza urrutizkiñ ontara: 617-829.

Emango lioken poza ez da esatekua. Ongi sarituko luke gaiñera.

UTSUNE AUNDIA.—Utzi du gure artian Anai Berriotxoa, euskaldun egitan yayuak. Amalau bat urte egiña da gure errian, emen duten Ikastetxean erakusle. Daukan adiñean ez genduan uste betiko gurean egongo etzanik. Naigabe aundia izan degu.

Bizkai'ko Mañari errian jaioa zan arren, «giputxa» ematen zuen. Aiñ ederki gipuzkoeraz mintzatzen bait zen. Bilbao'ko «Santiago» izeneko Ikastetxe ospetsura aldatua izan da.

Noizik beiñ agerraldiren bat egingo digulakuan gaude, gaur «urruti» itza baztartu, edo ta erabat aaztu bear dala dirudi ta.

Guk beintzat ez degu berealakuan aztu al izango, aztu eziñeko aiñakua bait da, izan ere, Anai Berriotxoa Agurgarria.

XOXO-BELTXA

Markiña

Erri jatorra ta euskalzalea. Ba ete dogu Bizkaian beronen neurriko erririk berton aiña euskera egiten danik? Lau bost aldiz joaten naz urtero Markiña'ra, ta beti biurtzen naz etxerantza pozez eta itxaropenez.

EUSKERA TA ALFABETATZEA.—*Ikastola eder ta nasai bat dabe markiñarrak karmeldarren komentu barruan. «Zerutxu» dau izena, ta benetan zerutxu bat dirudi, aingerutxo ta guzti. Au ori ta bestea esan dabe Ikastoletako andereñoak diralata. Beste Ikastoletakoak «Zerutxu»koen antzik ba'dabe, esku ezin obeagoetan dagoz gure umetxoak eta gure Euskalerria. Ez da errez galduko Markiña aldeko euskera sendo ta indartsua.*

Ikastola onek be izan dauz bere arerioak. Alde batetik laguntza gitxi, batez be goitik, eta bestaldetik oztopoak gaiñezka. Baiña «Gurasotaldeak» zintzo jokatu dau beti, oztopo guztiak azpiratuz. Erabagi sendo bat dauke artuta: euren landaratxoai aurretikoen sustraietan iraunazotea. Ekin eta jarrai! Fruturik gozoenak norbere izerdiz ta nekez gozatuak dira-ta.

Umetxoen indarra! Euron irakasbide argi ta garbia ikusiaz, gazteak eta ain gazte ez diran batzuk be gure izkuntza obeto ta sakonago ezagutzeko irriki bizitan jarri dira aspaldion. Azken iru urteotan gau-ikastolak eratu ditue, alfabetatzeko ta gure literaturagaz jabetzeko. Bestalde, ondo dakie Markiña aldea izan dogula Bizkai'ko euskal-idazlerik onenetarikoen sor-lekua. Berrogei bat neska-mutil ari dira, astean iru bidar, Mertzedeko Ikastetxean, jo ta ke, lau taldetan bananduta. Euron artean monjaren batzuk be ikusten ei dira, eurak be erriarenak *eta* erriarentzat *dirala konturatuta. Prakadunok, alegiñak egin arren, ezin izan doguna, ea andereño ta monjatxuak lortzen dauskuen.*

Gauza bat da argi ta pozik ikusten doguna kanpotik goazanok: orain amar urte baiño euskera geiago entzuten dala gaur Markiña'ko kale ta tabernetan.

KARDULAZKERIAK.—*Baiña ez da dana lora utsa Markiña'ko baratzean be; erdi-erdian kardu-latz biribil bat agertu jako, nunbaitetik jausita. Ez da bertakoa, ez sortzez, ez aziz. Euskal-abizen ederrekoa bai, baiña, zoritxarrez, bere odolaren arerio amorratua. Zer dala-ta? Goi-zalekeria? Goiak, baiña, ez dira edonorentzat; antza, ardauak umeai lez, goiko aizeak burura egin dautsota. Ezin dau euskal-kutsuko ezertxo ikusi ta aintzat artu. Orain arte urteetan egin izan diran ainbat gauza, erriak bere-bereak dituanak, ondatu nairik dabilkigu... Norbaiti taberna baten entzuna: «etxean ezin, eta kalean agindu nai. Oba etxean prakadunago izan eta auzoan txeratsuago».*

MAX-KALAMU

Abadiño

JAI-ERRIKOIAK.—Gure agurra danontzat S. Blaseko jaietan! Gure erriko jayak San Blasetan doguz. Danok alai gagoz jai onetan. Uste dogu leku askotan entzute andikoak dirala. Euskalerri ta beste lekuetatik etortzen dira-ta erri onetara. Ondo etorria, ba, danori! Ta ondo igaro izango zenduezela opa dautzue abadiñotarrak.

Bai, entzute andikoak dira S. Blasak. Euskal-erriko toki guztietan. Noiz sortuak? Urte asko benetan dirala esaten dauskue gure zarrak. Antxiñatik etorten ziran, bai, Gipuzkoa, Araba, Naparroa ta Bizkai guztitik, baita Euskalerritik erbestekoak; batzuek ganaduekin peri onetara, beste asko, erromerira alaitasuna ta alkartasuna agertuaz, beste kristau asko be Elizara, S. Blaseri laguntasuna eskatzen.

Orain, gaurko egunetan, gauzak aldatu arren, gaurkotu daiguzan jai oneik, gure oitura ederrari jarraituta, Euskalerriko oiturak barriztauta, alaitasuna agertuaz, alkar agurtuaz, sendian eta lagunakaz alkartuta gure etxeko tokian.

Errikoyak izan gaitezan, S. Blasetako jai alaitsuetan.

ABADIÑO'KO ERRI ONEN JOKAEREA.—Uste dogu gogo onagaz gabiltzala, bai gazte ta zaarrak, bai neska ta andra danak erriaren aldeko gayetan. Aldrebeskuntzak be sortzen dira, baiña, iñoiz be asarrakuntza barik, aitzen gara. Danak, uste dogu, dabiltzala asmo onakaz, Abadiño erri au gora jaso guraz. Gazteak euren ardura biziakaz erria osotzen, eta ezkonduak eta zaarrak be asmo beroakaz danen alde.

Danori ba, Aurrera nekatu barik!

S. BLASAK DIRALA-TA.—Ondo ospatzeko gertu ebezan gazteak eta ez diranak. Jaiari erriaren izakera bat agertu euskaldunak aberaztuteko ta parte artu daien danak, euskaldun izakeretatik urrindu barik. Ia ba, agertu daiegun «kanpotarrei», euskaldunok be ba-dakigula zelan alaitu.

ERRIAREN ALDE LAN EGITEN.—«J. A. E. A.» deritxon taldea ba-dabil lan ona egiten, erriko bearrizanen alde; geixoen alde; zarren eta diruagaz eskaz dabiltzanen alde; urkoaren alde, au ba-dala benetako lana, maitasun benetakoa. Erri guztiak badaki euren laguntza nora doian; illero batzen dana Eleizan; ongilleen laguntza; zozketa ta batzen dogun dirua, talde onek ondo zatitzen dau. Ondo doya, ta, Aurrera!

GAZTEAK.—Benetan lan egiten diardue erriko gazteen alde. Gazteok alegintzen dira. umeak gertatzen Euskal-erriko jolasari buruz-Ba-diardue ezpata-dantzak erakusten, jolasetarako gertatzen. Ondo zabiltza ta, aurrera!

IKASTOLEA.—Ikastolea be sortu da. Erriko umetxoentzat aukera au ipiñi dogu. Gure euskera eder au erakutsiteko; jakintza onuragarriago bat euskeraz gure umeeri sartzeko. Gure Ikastolaren izena «GURE LANDARATXU» dogu; ta S. Blasen jaian ostean zabalduko da. Danak, batez be gurasoak, ondo artu dabe lan au. Danon bidez, uste dogu, aurrera eroango dogula ekintza au, Abadiño'ko umeak euskera gure izketea benetan ikasi, ta izketa onen bitartez obeto aituko gara.

Ia ba danon bidez, aitzen emoten daiegun beste askori, Abadiño'n be ba-dagola euskal gizon aberatzik.

ERRITARRA

Usansolo

EUSKERA ARAZOAK.—*Aspergarri nazela ezango daustazue, baiña ezin ixilik egon. Zelan ixildu geintikez gure izkuntza maitea ain alboratuta ikusiaz.*

Euskeran alde zer bait egiteko gogoan, dei bat egin geuntzan gure auzuneko euskaldunai. Ainbat agertu ziran, baiña batzar baten bitartez ekin bearrak ta diru emotea azaldu ziranean, geienak otzitu egin ziran. Alan da guztiz be, ogetamarren bat gelditu giñan, ta onein artetik bederatzi gixonemakumezko talde bat atera genduan gure asmoaren buru-egiteko.

Garrantzidun buruera: zer egin irutik sei urterarteko aurtxoarentzat, umezaintza bat lortzeko. Asmo onegaz gengozala, albiste bat gure artean zabaldu zan. Usansolo'n ibilli dirala Udal-etxeko notin batzuk, aur-ikastola batentzat toki egokiena aukeratzen.

Alkate Jaunari eskutitz bat bialdu geuntzan au entzunez ondoren, esanez, albiste ori egia ba' zan, entzundako izango diran lau gelatatik bat, euskaldun umeentzat izan daiten. Baimen ori ez ei dago bere eskuetan, Eziketako Ministerioan baiño, ta orren atzean gabiltz orain.

Ainbat adiskideri eskatu dautsagu Ministerio orretako buru-ordezkoarentzat gomendiozko gutun bat (presentasio eskutitz bat) baiña orain arte ez dogu ezer lortu. Ez ete dago AGUR irakurlearen artean, Jaun onen ezaupide danik, eskutitz ori egingo dauskunik? Iñork al ba'dau, emen ezarriten dogun zuzenbideari deitu edo idatzi dagiala. Atxutegi'tar Julene, Labeaga'ko 55 zenbakian, Galdakano, urrutizkiñaren zenbakia 76.06.05.

Bat baiño geiagori, irribarre bat azalduko jako, idazlantxo au irakurtean ametsetan gagozala asmaturik. Ba-litzake ametsetan egotea. Baiña Usansolo'ko umetxoentzat aur-ikastol oneik egiten ba'dira, edo obeto esanda, umezaintza batzuk, besterik ez da-ta irutik sei urterarteko aurtxoentzat egiten diran ikastolak, ezin leitekez ara euskaldun umeak bialdu? Ta ez erderaz ikasteko, euran etxean euskera garbian dabiltzaz-ta, euskera sakontzeko baiño?

Umezaintza oneik, Erriko umearentzat ba'dira. Ta Euskal Errian bizi garan ezkero, euskaldun gurasoentzat, ez ete daukie baliorik? Danon gogoan dago, ikasgaiak, urte onetarako garaia eltzen danean, erderaz egitea bearrezkoa izango dala, baiña une ori eldu arte, euskaldun gurasoak, euren Erri barruan, bigarren maillakoak izango ete gara? Erriaren aberastasunari begira, gure lana ta ekin bearrak ontzat artzen ba'dira, ordainketa, dana ukatzea izango ete da? Barriro be ba-diñot: Ba-litzake ametsetan egotea, baiña ezin gara gelditu alegiñak egin barik.

AGUR'en irakurleok, zuen laguntasuna itxaroten gagoz. Deitu edo idatzi.

ATXUTEGI'TAR JULENE

CASCO VIEJO

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

TENDERIA

Boutique
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tendería, 15 eta 16

Euskal errikó gizon ospetsuak

IÑAKI EIZMENDI, «BAXARRI»

Urtarrilla'k lau egun zitun, ni Zarautz'a agertu nintzanean. «Baxarri'n» etxera nijoalarik, kalean, ume batzukin topatu nintzan. Erregeeri eskutitz edo kartak eskeintzera zijoazten; irriparrez eta ilusioz beterik.

Bertsolari onekin gelditu nintzan, bion artean, alkarrizketa bat moldatzeko, eta beregana inguratze orrek, pozez betetzen zidan barrua.

Emen ez det gizon onen aurkezpenik egingo, gaiñez daki irakurleak eta entzun du bere izena.

R.—Nun jaioa zaitugu «Baxarri».

B.—Errexil'en Granada baserrian, baiñan, zazpi urtekin ekarri ninduten Zarautz'a. Emen nere gurasoak ostatua zuten, Azken-Portu izena zuen ostatu onek, kale eta baserrien muga bertan arkizen zelarik, orregaitik datorkio izen ori.

R.—Noiz asi ziñan bertsoak kantatzen.

B.—Zazpi urte nitueneako, eskola joaten nintzaneako, aritzen nintzan bertsoak eta rimak sumatzen. Izan ere ori nuen maite.

R.—Eta jendearen aurrean?

B.—Amalau edo amabost urte izango nintun, gure ostatuan kantatzen asi nintzanean. Bertara, baserritar asko azaltzen ziran, eta baserritarrari beti gustatu eta atsegin izan zaio bertsoak entzutea, beren artean gaiñera, ba-ziran poliki kantatzen zituztenak. Gaiñera, maiz azaltzen ziran bertsolari batzuk: Gaztelu, Frantzeza, Nekazabaltza, «Sasi», berarekin amaika saio egiña naiz. Gero, lenengo agerraldia Zestuan izan nun, Bertan, Euskal-Jai bat eratu zen, eta plazan erdian, Ordizia'ko Errauskin errotaria ari zen bakarrik bertsoak moldatzen, eta lagun batzuk esaten zidaten: «Erantzun, igo adi eta kantatu», gero ta geio saiatzen ziran nere lagunak, eta azkenik danen artian igo ninuen eta kantatu nuen plazan jendearen aurrean. Bigarren aldiz, Kursaal'ean, antzokian. Garai artan (nik emeretzi urte nituen) ba zan naste-borraste talde bat, bertako zuzendariak; Mujika pintorea eta musika bandako zuzendari egiten zuena ziren, jai bat moldatu zuten eta bertako bertsolari bat bear nunbait eta neri esan zidaten. Nik oso lotsati kantatu arren. El Pueblo Vasco, orduko izparringian, Zubimendi idazleak egundoko goralpenak egin zitun neregaitik.

R.—Txapelketa askota azaldua izan al zera.

B.—Ziur ez ditut esango, baiñan nik uste ogei bat edo orrela izango zirala, Frantzian bertan dozena bat aldiz azaldu naiz.

R.—Zure pausu garrantzitsuena noiz izan zen txapelketari buruz.

B.—1935 urtean, Euskal Zaleak (Lekuona, Aitzol ta abar), berak lenengo aldiz eratu zuten txapelketan. Urte artan, ogei bertsolarik artu gendun parte, denetan gazteena ni nintzen, eta neronek jaso nuen lenengo saria, bigarren Mattin gelditu zen (oraingo Mattin au ez, beste bat ere ba zan leen izen berbera zuena) irugarren Zepai, Alkain zaarra laugarren eta «Txirrita» sonatua bostgarren. Txapelketa aietan erabakita zegonez, lenengo saria irabazten zuenak, iru urte segidan juradu bezela gelditzen zan, Lekuona ta Aiztole'kin batean, beraz, 1936' go sariketan juradu bezela egon nintzen.

R.—Urte artan nor izan zen irabazle.

B.—Boto geienak Uztapidek jaso arren, «Txirrita'ri» eman zitzaion, zaarrena zelako, 76 urte zitun, eta bere ezaupide, egindako lanen ordaiñez bezela.

R.—Zenbat txapelketa irabazi izan dituzu.

B.—Parte artu nintuen guztitan gertatu nintzan irabazle. Donostia'n bigarren gelditu nintzanekoa kenduta.

R.—Zein bertsolariekin izan duzu artuemanik aundiena.

B.—Dudarik gabe Uztapide'kin, berarekin ibilli naiz ogeita bat urtean, euskalerriko erri geienai bira ematen. Orduan, geienean erriko pesteta eta abar, bi bertsolari deitzen zituzten, ta naiz Zepai eta beste bertsolari askokin artuemanak izan, geiena Uztapide'kin ibilli naiz.

R.—Zuretzat zer da bertsolari izatea.



B.—Begira nere sendian amar anaiarreba izan gera, danetatik, ni bakarrik izan naiz bertsolaria, orrekin esan nai dut; bertsolariak jaio egin bear duela, ori berez etortzen dena da; beste batzuk, margolariak edo musikoak ateratzen dira, gu berriz bertsolari. Nere ustez gaiñera, bertsolaria zenbat eta zarrago orduan eta obeagoa izaten da, ludia geiago ezagutzen duelako, bere experientziagaitik eta abar. Bertsolariak gaiñera, gustora ibiltzeko, giroa bear du, bertsoak gustatzen zaion jendean aurrean kantatu, bertsoa ulertu eta sentitzen duenen aurrean.

R.—Zuri zein gustatzen zaizu geien, kantatzea ala idaztea.

B.—Ez det aukera berezirik, bi aldetara egin det, eta biak zaizkit atsegin.

R.—Zuretzat nortzuk izan dira une garratz eta alaiak.

B.—Erderazko giroa egon zanean, leku gutxitara deituak izaten giñan, eta giro artan amaika naigabe jasota jun izan gera etxera. Orduan egindako lan artatik, gaur konten nago, ikusi bai det bide latz aiek igaro ondoren etorri direla obeagoak. Egun aietan ez ba'zan ezer egin, gaurko egoera nolakoa izangoa zen jakitea ez da oso errexa izango.

R.—Zuk bertsoak aparte, idatzi ere egin dezu, zenbat denbora daramazu lumakin.

B.—Berrogei bat urte. Idatzi izan oi dut onako izparringi eta aldizkarietan: Argia, Euzkadi, El Dia, Zeruko Argia, Aranzazu. Lenengo, asieran, erriko berri emaille bezela, ta gero artikuluak bidaliaz. Baita ere, La Voz de España izparringian 26 urte daramazkit, eta irratian berriz, 15.

R.—Libururik argitaraturik?

B.—«Kantari Nator» eta beste iru geiago. Lenengoa Atano pelotariari eskeiñia.

Emen amaitu da alkarrizketa, etxean beste bi mutil gazte zai zegozten, berarekin itz egiteko. Baxarrik'k ateraiño lagunizen, alkar eskua luzatuz agurtu gera.

Agur.

Agur.

RAMON ZAPIRAIN

LAGUNDU!!

Euskerea indartuko ba'da, idaztiak ugaritu bear: saldu, erosi, ordaindu ta irakurri, zuk eta zureak. Barriak eta obeak nai ba'dozuz, ta nai ez ba'dozuz be ta euskereak iraungo ba'dau...

ERNAI **Idaztegia**

AUXE GOGORATZERA DATORKIZU: EROSI, EROSI, EROSI, BAIÑA, ARREN, *IRAKURRI* BE BAI!

Filolojiazko - jardunak

Pompeu - Fabra

Egonaldia BILBO'n

Katalandar izkuntzalari ospetsua amar urtez (1902-1912) Bilbo'n bizi izan zala gauza ezaguna da. Ain zuzen Industri-Injenieroen ikastola nagusira Kimika irakastera eldua zan; eta geroxeago «*Artes y Oficios*» deritzan Ikastolan ere maisu izendatu zuten.

Guziok dakigu Fabra'k kimikarako baiño Filolojia ta Izkuntzen jakintzarako zaletasun eta dei obea zituala. Baiñan, ala bearrez, ezkonduta familia aurrera aterako ba'zuan, Bartzelona, bere jaioterri maitea utzirik Bilbo'runtz aldatu zan ogibideari jarraituaz. Bizitzaren garratza!

Orregatik, ordea, ez zituan alde batera laga katalanerazko bere lanak. Gogoak zerabilzkian beti, ez tarteka-marteka, egunero baizik gaztetandiko kezka ta griñak. Auetan nagusiena Katalan-gramatika bat osatu ta sakontzea zuan. Eginkizun ortan amasei urtedun besterik ez zala asia zan. Arrigarria da benetan norberak sortzetik dakarkian dei berezia! Ez uste izan etxean guraso ta senideok orretara bultza zutenik. Ez! Ponpeu gaztea, berez asi zan katalan izkuntzaz arduratzen. Amabost urte izan zituan arte ez zuan ezer katalanez idatzi. Ezta eskutitz xume bate ere! Berak aitortzen digunez Arregi-Ziburu euskal jatorrizko familia bateko semeari, naiz Kuba'n jaioa izan, zor omen zion izkuntzenganako zaletasuna. Arregi ta Fabra mutil gazte eskola lagunak alkarrekin prantzes, italiera ta ingles leiaketan aritzen omen ziran, Bartzelona'ko kaian arkitzen zituzten itsas-gizonekin.

Ordurako katalanerazko kezka sortu zitzaion eta Ponpeu'k kalean ezik Mila i Fontanals, Bofarull eta beste maisuen liburuetan ikasten ziardun. Urrengo urratza eman zuan «*L'Avenç*» aldizkarian bere lanak argitaratzen asi zanean.

Katalan izkuntzaren inguruan eztabaida ta burrukak «pil-pil» zeuden Fabra gizon egiñak —34 urte zitualarik— Bartzelona'tik irten bearra izan zuanean. Bilbo'n euskal-kultura lo zorroan zegon. Emen Industriaren aurrerapena, eta ekonomiaren giroan murgildurik zeuden jendeak. Gizarte, langille ta ugazaben arteko arazoa ziran gallenenak; eta politikako nor-geiagoren jokua ere bai, noski. Orratiokan, R. M. Azkuek eta Arana-Goiri'k euskaltasuna piztu naiez ots aundia ateratzen zuten, Ez dugu uste, ordea Ponpeu Fabra'k aiekin ar-emanik izan zuanik. Azkue, buru-belarri bere Iztegi nagusia gertutzen ari zan eta maiz zebillen lanean Bilbo'tik kanpora. Sabin'ek ordurako «*Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino*», «*Pliegos Euzkerefilos*» eta beste zenbait lan argitaraturik zeuzkan. Baiñan azken urteetan politikaren burruka gogorrak emandako nekeaz eta espetxean jasandako naigabez eritasun menpean eroria zegon. Beraz ez da arritzekoa biok alkar ez ba-zuten ezagutu. Sabin'ek ez du bere lanetan Fabra'ren izenik aitatzen. Ezta Bartzelonan'n bizi izan zalarik katalanzale asko bertatik bertara ikusi zituala. Ponpeu'k ere ez dakit iñoiz izendatzen ote duan. Nik ez dut ikusi beintzat.

Alderantzian, R. M. Azkue ezagutu zuala ziur dakigu. Onek 1922 urtean Euskaltzaindiaren aginduz «Institut D'Estudis Catalans» dalakoa ikertzera joan zan. Bien arteko alderakuntza egitea gerorako utziko dugu.

Fabra Bilbo'n bizi izan zalarik, Kimika irakaskuntzaz at, iñoiz Lyon d'Or edo beste kafeetxe biltokira, joan oi zala, berriketara ta pipakada bat erretzera... zalea bait zan uste izatekoa da.

Baiñan garai artako zenbait «intelektual» oso gogoko ez, eta naiago zuan erritar jende xearekin mintzatzea. Unamuno'rekin adiskide egin zan, ori bai, eta alkarrekin Bizkai barrura, txangoren bat edo beste bururatu zituzten, baba-jate edo euskal-bazkari legea betetzeko aitzekiz. Mendi-kutsua biok maite zuten uri aundietakoa baiño geiago.

Fabra'k gero ta entzute aundiago zuan katalandarren artean eta Bilbo'n «Katalan-Batzokia» zabaldu zutelarik bera aukeratu zuten lendakaritzat. Orduko egunkarietan irakur diteke «*Hotel Torrontegin*» ospatu izan zituzten jaialdi ta otoruntzen xeetasunak.

Pompeu pozik eta pakean bizi zan Begoña'ko bere etxean eta emen jaio zitzaion bigarren alaba, ta emazte ta senideak erabat oitu ziran Bilbo'ko girora.

Alaz ta guziaz Pompeu Fabra'k bere aberriruntz zuzendua zuan begiratua. Eta 1912 urtean Puig i Caldafach billa etorri zitzaionean, barruan zuan joerak eraginda Catalunia'ra itzultzea bat bateko erabakia izan zan. Katalan izkuntzaren aldeko bere asmoak aurrera ateratzeko garaia eldu zitzaion. Gogoan eta biotzean zeraman arazo goitar eta garrantziduna.

Arlo aberkoia nola bete izan zuan beti, ta zer nolako erakusbidea dan guretzat urrengo bere idaz-lanetan J. I. aztertzen joango natzaizute.

ANTONIO M.ª LABAYEN

GAURKOTU, GAURKOTU
(XXIII Jon A. S'ak)

Esan ba'zun esan, itz ori gure Aita Santu maiteak: GAURKOTU. Ez ote dizuegu maiztxo erabiltzen itzaldi ta alkar-izketetan eta. Ori uste du, beintzat, Joxe Mari jatorrak.

Sortze Garbi bederatziurrenean giñan, laugarren edo bosgarren egunean. Alkarrekin gentozen etxe aldera elizkizun ondoren. Ba-al dakizu, esan zidan Joxe Mari'k, ba-al dakizu zer ezin kendu dedan burutik egunotan? Gure Aita'k kontatzen zigun gertakizun au:

Ba omen zan Euskalerria'n, aiek gazte ziranean, entzute aundiko izlari praille bizar luzea. Bere Aita txit maite, Prantzisko Donea, aitatu gabe sermorik, bein ere ez.

Jaioterriak urtero eskeintzen dio bederatziurrena Iñaki Donea'ri, beronen egunerako. Urte artako itzaldiak egiteko, gure izlari ospetsua aukera zuten azpeitiarrek. Oraingoan, orratik, utzi bearko dik txokoan, goxo goxo, bere Aita Prantzisko maitea, zioten azpeitiarrek.

Ekin dio aurreneko itzaldiari. Sutsu ekin ere: «Azpeiti'ko anaiarreba maiteak, gure Zaindari Aundia, Loiola'ko Iñazio Donea, irugarrendarra zan, Prantzisko Donearen Irugarren Ordena'koa!...»

Orduko praille bizar luzea, dio Joxe Mari'k, ta gaurko sermolari bizardun eta gabeko asko, patilladun eta gabeko asko, alkarren antzeko, lena berriz, lena berriz orretan. Arek Aita Prantzisko gora ta bera, orain auek: GAURKOTU, GAURKOTU.

Billa asiko ba'giña, ez ote genituke Joxe Mari'ren iritzi bereko entzuleak ugari xamar arkituko? Beldur bear.

Arek bai jakiki, XXIII JON'ek, gaurkotzen eta, nongotzen eta, norentzakotzen eta. Noiz, non eta nori, gauzak nola esan, alegia. Egokia ez ba'genun, ba, orretantxe gure Aita Santu ua! Aita Santua'ren Ordezkari genun orduan Paris'en. Artean Roncalli abizenez ezaguna. Bazkari ospetsu orietako batera joan egin bear, Aita Santua'ren Ordezkaria'k, eta joan.

Jakiak ekartzeko zai zegozen. Mai erdian, apaingarri, sagar ikusgarriak ageri omen ziran. Ederrena artu ta aldamenean zeukan aundikiak andreari eskeiñi omen zion. Eta onek: «Jaten asi ere ez gera egin eta». «Bai, baiña, Eba ere segerrari kosk egin eta oartu omen zan larru gorri zegona».

XXIII Jon, gaur, gure artera ba'letor, auxe esango ligukela nik uste: «Euskaldun maiteak, «Donostia'n Donosti ta Gorostia'n Gorosti».

«Oeko epel gozoa utzita, goizean goiz, Sortze Garbi bederatziurreneko zuen itzaldiak entzutera etortzen diran Andra Mari'ren maitale garrosak, ez al dezue, ba, ikusi, Apaiz maiteak, ez al dezue ikusi, perrak kendu ta larrean dabiltzan andregizonak dirala, jubilatuak, alegia. Ta orrek «Eme Gaztedi»ko edo Joc'eko neska-mutillentzat gertatako itzaldiak entzunarazi?»

Ta... ba-diteke gaiñera, «ni Aita Santu izan baiño len, II Eliz Batzar Nagusia baiño len, zuk ikasketak asi baiño len, ordukotu *ta gizaseme bideen alde, erri-eskubideen alde, jator jokatu izan neke ta lor aundiak eramanak izatea, zuen entzute artean, gizon eta emakume ixil ta otzan aien artean». Joxe Mari bera, ez ote orietako bat?*

Berri Ona'n ez ba-dezue, ba, gai ugari bai koitzari dagokionaz mintzatzeko. Besteri entzun edo, irakurria edo, besterik, ia, esan ez eta nekatu ala ere txori txikia.

TXAN-TXAN

AGUR

III URTEA
11 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1972 - OTSAILLA - 29

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

EGUTEGIA

Denporea oso igaskorra dogu eta ezin dogu ezelan be bere ariñeketea gelditu. Gure aurrekoai amaitu jaken; guri egunerik egutera, urterik urtera, gizaldirik gizaldira, ba joaku; eta gure ostean beste batzuk dagoz euren aldiari itxaroten.

Baiña denporea gelditzea lortu ez ba dogu be, gitxienez, neurri bat ipiñi dautsagu eta denporea neurtze onek gu arean be ez gaitu arritzen. Bai ostera, basa-mortuetatik etorten diran basa-gizonak arritzen ditu; eurak esaten dabe lez, gizon jakitunak dauan zorakeriarik bat auxe da: denporeari, azke joaten itzi bearrean neurri batzukaz lotu egiten dau.

Eta, euren eretxiz jakitunak garanok, denporea neurtu bearrean gagoz, eta, geroago ta geiago, ordulariaren (erlojuaren) menpean jarten gaitue: lanerako, ordua; jateko, ordua; osteretarako, ordua; lo egiteko, ordua... Eta geroago ta estutasun aundiagoz menperatzen gaitue orduak, egunak, urteak...

Denporea, gizon jakitunaren asmakizunez, antxiñarik neurtzen da. Orretarako, Sumer'tarrak eta Aigipto'tarrak asi eta gaur arte, guztarrak begiratu bearra izan dogu. Izadiak berak emon dautso oiñarria: gaba ta eguna, urte-aroak, urtea bera... Beste denpora-aldi batzuk berak asmaurikoak dira. Astea, esaterako, Juda'tarren jakintzatik kristiñau-errira etorria da.

Gizaldia be gizonak asmauriko denpora-aldia da, baita gizaldiak zenbatzeko asierea be. Gaur ludiaren bazter geienetan Kristo'ren jaiotzea gizaldien asiera lez artzen da.

* * *

Denpora-neurtze onetan izan dira uts egiteak be. Izar-zaleen jakituria, antxiñatik, sakona ta argia izan arren, jakituri onek be bere aurrerapenak izan ditu, eta ortik etorri da egutegia aldatu bearra.

Gogoratu dagiguzan aldaketa bi. Bata Julius Caesar, erromatarrak, egin ebana. Berak ezarri eutson egutegiari otsaillaren 29'garren eguna lau urterik bein, eta orretarako epaillaren kalenda-aurreko seigarren eguna bitan agertzen zan egutegian. Ortik urte onen izena: «dies bis sextus» egun bissextua, gero «urte bisiestua». Baiña aldaketa au be ez zan oso zeatz egiña eta XIV Gregorio Aita Santuaren egunetara eldu giñaterako amar egun galduak ziran. Aita Santu onek urrillaren bostetik amabosterako egunak kendu ebazan egutegitik eta, aurrerantzean egunik galdu ez daigun, lareun urterik lareun urtera «bisiestuak» kendu zituan. Bide orretatik argitzen dira gure egutegi guztiak.

* * *

Gaurko egutegiak be ba ditu, orregaitiño, bere akatsak eta gaurko gizon barri-zaleak be ba dau egutegia barriztatzeko gurari bizia.

Alde batetik, illargi-egutegia ta eguzki-egutegia jai batzuetan nastean dabiltz eta urte-barruan jai batzuk aldakorrak dira, ain zuzen be pazko-inguruan dabiltzanak. Egun aldakorrok gelditzea geienen guraria da.

Beste askok aldaketa sakonago bat nai dabe: urtearen illeak zergaitik amabi? Eta illearen egunak, zergaitik ez ogetalau? eta astearen egunak zergaitik zazpi?

Aldaketa au bearrezkoa dala uste dogu. Ezin ukatu jai aldakorrak gelditzea bearrezkoa danik. Ille guztiak bardiñak izatea be ondo litzake, eta gero urtea bardintzeko egun azke batzuk jarri. Urte barruan ille geiago edo gitxiago izateak be ez dauka kalterik iñorentzat. Ez eta ille bakotxak egun geiago edo gitxiago izateak.

Baiña zer asteari buruz? Asteak ba dau, erilijiño aldetik be, oiñarri bat. Alde batetik, laburuan agertzen jakun ludigintza, mundugintza, eta bestetik Kristo'ren berbizkundea eta berau astero gogoratzeko oiturea; Justin martirrak diñon lez gure aurretiko Kristiñauak, bigarren gizaldia ezkero beintzat, astean bein eguzkiaren egunean, «dies solis», euren batzarra egiten dabe. Juda'tarrak ostera zapatuan.

Gaurko igandeak baiño ugariago bear ba' dira jai-egunak, erreza da jai ori zapatuan jartea. Ondo izago leiteke, ba, astea gizarteoitura lez onartzea; baiña barriztatze onetan astea be aldatu bear ba'da, zergaitik ez?

«Denporea urrea» dala, antxiñatik esaten da. Egin daigun denpora au gizonarentzat eta gizartearentzat onurakorra.

AGUR



Bere asmakizunen otsein!

EUSKEREAGAZ BATERA DANA GALDUAZ DOA

Lengo igande baten nere errira, Ondarru'ra egin benan osteratxuan Kamiñazpi'ko elizatxuan mezia entzun neban. Elizako urteko goraberen barri emon eban abadeak, onenbeste diru artu, onenbeste eman ta abar.

Ez ninduan asko poztu abade arek emon eban barrietako batek!

Ondarru'n, igaz, guraso erdaldunen 126 ume jaio zirala ta euskaldunak 116. Beraz, erdaldunak euskaldunak baiño geiago.

Ara or Ondarru euskaldun, erri jatorra, laster erdaldunduteko bide ziurrean abiadan sartuta. Ta, au, Ondarru'ko kontua ba'litz soillik, gaitzerdi, baiña danok dakigu danekoa edo erri askotakoa dana.

Ondarru'n itxas-ontzietarako bear dira gizonak, beste erri batzutan lantegietarako, meatzetarako edo beste norabaitetarako.

Auxe bai dala gure erriaren minbizia, kantzerra! Euskera galtzen doala ta or gabiz estu-estu ta errazoiz gaiñera, bere alde didarka ta al doguna egiñaz. Baiña, euskera ta gure erriaren nortasuna oso-osorik ondatu bear daben gatz onek min andirik ez dauskula emoten dirudi. Beintzat ori dala-ta erosta gitxi entzuten da.

Euskerak soillik kezkatzen gaituala dirudi. Egia, gure erriaren nortasuna euskera da geienbat. Baiña izkuntzaz kanpora ba-dau gure erriak izakera jator garrantzitsurik! Ez da au olako edo alako margo edo koloreko politikakoak euren naiari indarra emon naian asmatutakoa. Gaurko antropologoak be baieztuten dabe euskal enda edo arraziaren izate berezia.

Baiña ez nator orain, euskaldunak olako edo alako odolekoak izaten iraun daigun, edo gure buru azurra aurrerantzean be luzeago edo laburragoa izan daitean alegindu bear garala esaten. Baiña euskerak irautea nai ba'dogu, gure oitura, jolas, eresi ta abarrek bizirik iraun biar ba'dabe, gure erriak bere buru jaubetasuna billa daiala nai ba'dogu, Euskalerri'ko bizi-lagun geienak jatorriz euskaldunak diranak izan biar dira. Len, emengo geienak euskaldunak giñanean gure errira etorten ziran erdaldun apurrak nai ta nai ez gutar egiten ziran, euskera ikasi biarra euken eta ikasi egiten zuten. Gaur erdaldunak gu baiño geiago izanik, ta batez be euskaldun askok euskera utzi egin dabela ikusten dabelarik orain, ez dago olako konturik, gaur errezago be ba jake ta euren errian bizi ba'iltzaz lez erdaldun izaten jarraituko dabe.

Bear bada, danean euskaldun izaten iraun-nai au, errizaletasun au, igarotako kontua dala esango dauskue, edo Elizak berak be gaiztetsia. Igarotako kontua, Elizak gaiztetsia norbere errizaletasuna? Ez bata ta ez bestea. Errizaletasuna, norbere erriari erri lez iraun-eragitea sentikizun goragarria da, ta berezko eskubidea.

Eskubide au iñork ez daiteke ukatu. Ta onetxeagaitik, norbere errizaletasuna sentikizun goragarria, baikaiña dalako ta erriak euren nortasunari iraun-eragiteko eskubidea ba-dabelako, samiñez ikusten dogu ainbeste erdaldun gurera erriratzea.

Oraintxe bertan, au idazten asi aurretik izparringian auxe irakurri dot: Errenderia'n 1.950'garren urtean 18.000 biztanle zirala ta 1.980'garrenean 70.000 izango dirala. Ara or argi ta garbi gure erriaren nortasunak eriotzara daroan abiada.

Ala be euskerak ainbat kezka emoten dautsen batzuk, orrek, bat be ez dauz atsekabetuten. Benetan, ez dodaz ulertzen.

Gure erriaren nortasuna galdu ez daitean olako edo alako neurriak artu biar litzakezala esatera ez nator. Egin be ezin geinke egin eta aal izanda be iñoren kalterako litzaken ezer ez geunke egin edo asmatuko.

Baiña beintzat ortik euskaldun nortasunari datorkion kaltearen kontzientzia izan daigun.

KAMIÑAZPI

ZULAGIÑAK

Gaurko gai au, erabilli ala ez erabakitzea ez da erreza izan. Egia esan, bear bada ez da garrantzitsua irakurleentzat, baiña bai erakusgarria bizi garan giroari neurriak artzeko.

Ara, lengo igande baten, Otsail onen 6' gnean, auzoko gizon batek oarturik, kalera jatsi bear izan neban: nere berebillak lau burpillak zulatuta eukazan, aize-estalkiko garbigailluak apurtuta, ta aurre aldean izki aundi bat margotuta.

Zer egin? Zer pentsatu? Nor izan ete leikean olako umekeri baten egillea? lauso artean egoan nere burua, ez nuen izki orren esan-naia ezaguntzen-eta... Lenen lenengo izan nituan usteak, ustelak zirala, urrengo egunean jakin neban, edo... olan dirudi beintzat. Izenpetu bako eskutitz baten bitartez argitu edo argitu nai izan eusteen naspillaren muiña edo, obeto esateko «izki-soparen saltzea». Sekula olakorik!

Jaungoikoari eskerrak, olako arazoetatik urrun nabil aspaldian, eta gure erriari lortu dautsen egoerea (gure izakerak ez du besterik merezi, aurki) ikusi ezkero, geroago ta urrunago ibilliko naizelakoan nago.

Beraz, «abillada» orren egilleak, arrazoirik kaxkarrena izan ba'lebe be, erru bakoa aukeratu eben «zigorgarritzat» Zergaitik ni? Bear bada, umekeri bateri dagokiona, umeen espezialista bat dalako-edo... ta ez pentsatu zabalkundea danik!

Baiña es da ori kontua, ez. «Ekintzearen» muiñean sartu ezkero, gertakizunari begiratu ezkero, negargarria da; ala ta be, barregarria askorentzat. Zer esan nai ete-dau? Gazteen izenean umekerietan dabiltzala? Ta ez aitatu emen betiko «paternalismo» ori, mesedez! Olako ekintzak, ausartasun bakoak eta errizale merke izenekoak egiteko lakoak dira, duda barik.

Gauaren illuntasunak, bakardadearen erreztasunak, eta salakuntzarik izango dan bildurrik ezak, gordetzen ditu... ta ori mutillak, ez emen ezta iñungo erri aurreratuan (basatien artean bai, bear bada) ez da errizale izatea!

Ta ez etorri gero, itz politekin betiko elburuak apaintzen, guzurrezko bideak dira orreik-eta. Ez mutillak, aukeratzean erratu zarie, baiña ez dautsuet orregaitik gorrotorik, errukia baiño.



Ez dot uste euskerarik jakingo dozuenik (erderaz idazten dozue-ta), baiña errukia emoten daust zuen buruak zorabiotuta ikusteak. Errukia, umetxikieri begira antzera, norbere etxekoen artekoak, asarre-aldian, edozelako pitxiak apurtzen ikusteak.

Errukia, zuen sorterriak «olako ekintza ausartak» egiteko lain diran gazteak izateak. Zoritxarrekoak gu, baiña zorionekoak amets utsean bizi diranak!

Jakin egizue urrengorako, jakin be jakin ba-dakizue-ta: Ni aspaldi onetan beste izki baten gora beerekin kezkatuta ibilli naiz, zorioneko edo zoritxarreko «h» orrekin; baiña orain alfabeto osoakin burrukan sartzen ba'nauzue, ta izki bakoitzeko burpil bat zulatu, «elikoptero» orretako bat erosi bearko dot eta naizta zuen gurasoen antzera «burgestzat» salatua izan, ez daukat nik orrenbesterako dirudik!

Ba ete-dakizue au idatzikeran zelako diskoa entzuten ngoan? Nai siñestu nai siñestu ez; «zer egigo degu; alkar jo! zer egingo degu, alkar il! ori ez, ori ez, ori ez... ala bai?

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

LORRIN EZ DAIGUN IDATZI

Zoritxarreko erderakada ta atzekoz-aurrerakadak!

Naiz-ta elizti-legerik iñoz ikasi izan ez, «au *edo* bestea da?» itauna irakurri edo entzun dagikegun euskaldun iatorreri min egiten dausku entzumenetan. Bai-ta, *neure* ordez *nire*, ta *geu* ta *zeu*ren lekuetan *gu*, ta *zu* entzun edo irakurri dagiguzanean be.

Ala ta nai (zein) erabilli bear diran tokietan *edo*, ta *neu*, *geu*, ta *zeu* bear diranean *ni*, *gu* ta *zu* darabillez, beti, azken-boladako idazlerik geienak, eta baita leentxuagoko askok ere.

Ikasketa guztiak erderaz egin, etxe ta ate, barru ta lekore beti erderaz, euskera iatorrez mintzatzen diran erritarrakaz, maxak diralako-edo, itzik egin nai ez eta aurretiko idazle onen lanik, arrokeri-bekaizkeriz-edo, irakurri ez: erdera, beti, buru ta biotz, erderakadaz beteriko euskera lorriña idatzi bear.

Alperreko izkiak nun iarri ikasi eziñik alperrik galtzen dabeen aldia euskeraz obetotxuago ikasten emongo ba'lebe, txarrago ez.

Leengoak leengo, oraingo idazlan askotan beste erderakada begargarri batzuk agertzen yakuz, aurrez, aditz-erabilkeretan. Aldi onetan nabarbenki agertzen dakiguzan batzuk aipatuko ditut:

Daiket, *daikezu*, *daike* ta abarren ordez *dot*, *dozu*, *dau* ta abar darabillez, oraiñaldi aldazkabage igarokorretan (*presente* de *indicativo transitivo*-etan). Eta bardin, aldi bardiñeko igaroezkorretan *(intransitivoetan)* be. *Naiteke*, *daiteke*, *gaitekez* ta abar erabilli bearrik, *naz*, *da*, *gara* ta abar. Enoa txarto darabillezan aditzaldi geiago aitatzen luzeegi litzake-ta.

Ori ez da, ba, euskerea. Erderatik zuzen aldatu daroe, esaterako: *No puedo traer* eta «ezin *dot* ekarri» itzultzen dabe. (Ezin ekarri dot, izan bear leuke). Baiña euskeraz adirazpen bi doguz. *oraiñaldian*. «Ezin ekarri *dot*» esan ba'dadit, eskuetan edo aldean dakardan zeozer adirazten dot; baiña eskuetan, edo aldean, baldin ezpadakart ezin esan daiteke «ezin ekarri *dot*» ezin ekarri *daiket*» baiño. Egiteko daitena ere esku-artean egiten ezpadiardugu «ezin egin *daiket*» esan bear, eta ez «ezin egin *dot*». Dakusgunez, bitzuok doguz oraiñaldikoak: Bata egiten diarduguna ta bestea, oraintxe egin bear doguna. Baiña, au ulergaitz izan, urrean, izketan diarduenean, euskeldun iator ez diranentzat. Baiña idazkeran ba-dabe goznartzeko astia.

Idazle kaxkarraik ezeze euskal-irakasle dirala diñoenak eta euskaltzaiñak eurak ere aurrez esan eta idazten ditue olako euskera gaiztozko aditz-erabilketak eta abar. Eta Euskaltzaindiak saritutako eleberri baten baiño geiagotan be (onek ere *euskaltzaiñen*, euren, lanak!) sarri irakurri izan dodaz autuan dabiltazan erako erderakada lorriñak. Leku onean dago olako *akademikuak* daukazan izkuntzea!

«Euskera-gaizto itz egiten dau» esan daroagu olako erderakadakaz, lorrin, itz egin daroenakaitik. Eta, euskera-gaizto egiten dabeenak aldizkarietan eleukee idatzi bear, izkuntzeari mesede baiño kalte geiago egiten diardue-ta.

Arana-Goiri'z aurreko idazleak ba-zituezan erderakada batzuk ioskeran; baiña aditzak eta enpaiduak areik bezela erabilten iakin ba'genki, beste egoera baten legoke gure elederra.

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN

POZAK ETA KEZKAK

Aramburu, Donosti'ko eguneroko baten erderaz idazten dabena, ez dogu ezagutzen, baiña bere belarriak erakusten dabillenetik, diadarka emoten dausku bere joerea.

Ez ei-da «r» ez «l» kakodunik erabilli bear ez diralako gaur erabilten, ta asarretuta datorkigu Agirre'tar María Dolores'ek euskeratu daben egutegi baten agertzen diralako.

Gure aldetik, onetzaz, auxe diñogu: AGUR'en gurako leukeela orrenbeste egin, baiña, tamalez, ez da orrelakorik irarkolan, ezta guk ere iñongo laguntzarik orrelakorik erosteko guretzat, eta orretxegaitik bakarrik ez darabilguz.

* * *

Illeen izenak ostera, guk, euskaldunak darabilguz, euskerazkoak, bai; ta ez dira guk asmatuak, euzko-belarria zikindu barik eukezanak esan dituenak baiño. Politak benetan, gaiñera! Aramburu'rentzat Akademiakoak ei-dira erabilli bear diranak. Zeiñenak?

* * *

Donosti, Donostia ei-da. Au ez da gure auzia, ez beintzat donostiarren gaiñetik jartzekoa, guk. Baiña, bertan, erriko seme euskaldunak «Donosti» erabilten dabela beti, gauza jakiña da. Baita berak, «h» bako Aramburu berak be, «y» ta guzti; orrela aipatzen dau beintzat José María Donosty idazlea.

* * *

«Esan naute» gaizki dago; baita «ikurriñan atzean» be, atzetik joan *be egiten da-ta. Aramburu'ren eretxiz, au be Akademiak esan bear ei-dau; zelan abestu be bai? Ta iñoiz kukurrukuak jaurtzen ditugunori be abesteko baimena kendu bearko dausku; ba, nik neuk, besterentzako abesten ez dodan onek (ezin), biok, zuzenduta naiago izaten ditut abestu; dagiala bakoitzak gura dauna ta albokoak belarriak estali edo gogorrago abestu berea, ta ez beintzat iruzpalau taldekerian dabiltzalako «baimenak» eskatzen ibilli, piz egiteko be.*

Gaur danerako «Akademia» ei-dago jaungoikotxiki, diñoe, lenagoko Euskaltzaindiari jaramonik iñoiz egin ez eutsen batzuk. Ta, nai duelako, ala ezin-bestean?, belarriak larregian agertzera beartu ditugu.

* * *

Bilbo'ko eguneroko baten, irakurleak edo erosteak urritu diralako-edo, euskera kutsua emoten asi yakuz. Orretarako, aspaldian erderaz idazten daben idazle euskaldun baten lanak darabillez; arrezkero euskeraz eta erderaz noizikbeingo sail bat argitaratzen dabe. Sail onen egillea oso langillea ta euskalzalea da, baiña ez daki euskerarik. Zorionak emotekotan izan giñan, erriko euskerea erabilliko ebala esan euskunean, ta alantxe izan be izan lenengo egunetan. Egunak joan eta egunak etorri, «euskerantoa» sartzen asi ziran, to ori baiño txarragoa, asmakizunen bidez, euskera garbi zaleak iraundu be bai... ez da arritzekoa!

* * *

Aldi baten, «Heri Kirolak» «r» kakodun izenburuakin agertzen ziran baserri-kirolen barriak. Baiña izen buru orretan «kontradizio» andi-andia ikusten zan. Alde batetik «h»a, bestetik «r» gaillurduna, baiña arazo ori ez da luzerokoa izan... eta gaillurra kendu dautsoe. Egunkari orretan diran euskera arduradunentzat, ikusten danez, Arana baiño Krutwig atsegiñagoa da... izkuntza aldetik, jakiña! Beste arazoetakoa ba-dakigu. Guk, urrutiz-kiñen bidez, «Buenos diasak lagunak» esan bearko dautsegu «teledirijidu» orrei. Jokabide ori ez da gaurkoa, naizta «eskeletan» euskal izen asko iruntsi bear.

PIPER-ZIRI

SASKI - NASKI

Poz aundia artu nun «Alkarri idatziaz» izeneko idaz-lana irakurri nunean. Eta oarrean esaten dizuten bezela, oso ederki idazten dezu adiskide. Bejondeizula! Ea zure ereduari jarraituz, beste batzuek esnatzen diran eta guzion artean, euskerari bizi berri ta indartsua ematen saiatzen geran.

Ainbeste «sasi-jakintsun» arrokeria ikusita, zure apaltasuna bai atsegiña! Oso burutapen ona dala derizkiot, alkarri idazte ori. Eta nik, naiz jakintsua izan ez, euskera irakaskintzan nabilkizu, ta pozik asiko nintzake, zurekin, zuk diozun bezela, «alkar izketan» edo obeto idazketan.

Ni, ikusten dezunez, gipuzkoarra nauzu, ta ba-dakit euskeran alde pixka bat ba degula, baiña ala ere ez det uste ulertu eziña izango degunik. Ziur naiz gaiñera, beste geiago ere izango dituzula, «alkar idazte» onetarako, eta beren artean, baita bizkaitarrak ere; eta abena nerea baiño laguntza aundiagoa izango dezula. Baiña ala ere, zuk nai ba'dezu, pozik idatziko dizut nik ere.

* * *

GOIZ ARGI aldizkarian, Ertziñape'ren idazlana irakurri det, ta bertan, Aita Goena'k emandako itzaldiaren berri jakin det. Itzaldi onetako zati batean onela omen zion:

«Ikastolak, gurasoen lasapiderako, eziera onetik doazela ikastolak. Gutxi gorabeerak alde batera utzita, noski; tartean tarteko utsuneak aparte. Geienik bat eziera emateko joerari begiratuta, bide onetatik dabiltzala alegia».

Azpeiti'ko ikastolatzaz izango ziran, noski, itz abek, eta ori orrela ba'da benetan pozgarria! Zoritxarrez, Euskal Erriko ikastola guzietzaz, ezin genezake orrelakorik esan. «Eziera emateko joerari begiratuta» dio. Ezieran, nere iritziz, gauza asko sartzen dira. Kristau geranentzat, lenengo gauza, «Kristau eziera» izango da noski, eta zoritxarrez, ikastola batzuetan eztet uste kristau giro aundia dagonik; eta giro au dagon batzuetan, alegiñak egiten ari dira lenbait-len kentzeko.

Au alde batetik; bestea, garrantzi aundikoa noski, izkera da, EUSKERA alegia. Zer motako euskera, edo dalako ori irakasten ari dira? Etzait beraz iruditzen, zoritxarrez, gurasoak «edozein» ikastolara, oso lasai bialdu genitzakenik, gure aurrak. Mingarria da orrela idatzi bear izatea, baiña gauzak orrela dira, ta ezin besterik esan.

Aita Goena'n itzaldiari jarraituz, beste gauza pozgarria irakurri det, ona bere itzak: «Ezitzaille doai berezizko emakume argi ta asko-ikasi batek urratu zitula bide berriak, gaur Ikastola diranak Ikastola izan ditezan».

«Zipitria ta Irastorza'tar Elbire, lenengo andereiñoari, Donosti'ar emakume bizkorrari zor zaiola, alderdi askotatik, Ikastolaren sorrera ta iaraupena». Gaur oraindik Ikastoletako gauza asko Elbire endereiñoaren «errentetatik» bizi dirala. Oneraiño Aita Goena'ren itzak, eta Ertziñape'k onela jarraitzen du: «Zer adierazi nai ote zuan? Zipitria irakasleari asko zor zaiola bakarrik?». Eta tartean, beste au ere esaten du: «Andereiñoen andereiño esan dezaiokegula uste dut, Aita Goena'k esan ez ba'zun ere».

Bai orixe! «Andereiñoen andereiñoa!» Ba-zan ordua Zopitria irakasleaz zerbait esatea! Baiña, zoritxarrez, oraingo ikastola asko ez dijoaz berak irakatsitako bideetatik. Orain «sasi-irakasle» askoentzat, Zipitria irakaslearen ezikera, oso «antxiñakoa» da te ez da orain bear deguna, ez euskera gaiean, ezta beste gai batzuetan ere! Berari zor zaion guzia zor izanda, galdera bat egin nai nuke:

Zer gertatzen da orain?

Aspaldian, orain asko entzuten dan abesti batetzaz idazteko asmoan nintzan, eta orra urtarrillaren 19'ko «El Diario Vasco»n euskal orrian, «Kaskarin batzuri» izeneko olerkia irakurri. Onela dio:


Neskatxa batzuk asi zaizkigu
«puntu gabeko» bertsotan:
beroien gustoz eluke bear
urrerik gure elizetan.
Salduz-keroztik aurki lirake
zenbait aberats-poltsetan,
eta ondoren emagalduen
esku, beso, kolkoetan.
Ner' ustez beintzat obeki daude
Jainkoa'ren aldaretan.

Elizetako edertasunak
itxuraz min die ematen
dantzatokien apaingarriez
beiñ ere ez itzik esaten;
droga ta urdangan kastatzen danaz
kezkarik ez dute eduten:
ordikeriak, lizunkeriak
gustora ditude irasten.
Ba-degu lanik zenbait txorori
nola pentsatu irakasten. (BASATI)

«Soro batean lorea» izeneko abestia da olerki onek aitatzen duna. Askotan arritu naiz Donosti'ko Erri Irratian, Kristaugiroko lekutan alegia, abesti au eta beste batzuek entzunda, eta euskal abestia dala ta besterik gabe, askoen atsegiña ikusita. Naizta abesti abek Eliza'ren aurkakoak izan, naizta birauak esan. Bai, Birauak ere bai! Ba-dakit asko, arrituta geldituko dirala au irakurrita, baiña tamalez, orrelaxe da. Bestela ikusi «Maiteaz galdezka» abestian esaten dana: «Antxe zegok Ura zera ederrean, gu emen utziaz umezurtz munduan». Au beste gauza batzuen artean. Zer derizkiozute?

Asko, nere ustez illargian bizi dira, ta beren inguruan gertatzen danik ez dute ikusten, eta gero bat-batean erortzen dira ta ezin siñistu ikusten dutena.

AMELE'K



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTEDIA BIZIRIK

KRISTO'REN IRAULTZA

Galdua ibilli arren, askotan zalatua izan arren, sarritan goitik zuzendua izan arren (au bai lotsagarria nagusi diranentzat) noizean bein gaztediak bere burua jasoten dau eta mundu guztiko mugetaraiño eragiten dau bere indarra. Bai, adizkideak, oraindik topau geinkiez gazte bulartsu ta ondrauak; oraindik irauten dau gaztedi barri zale batek. MUNDUKO GAZTEDIA BIZIRIK DAGO!

Askotan, gaurko gaztedia ez da onartua; askotan gaztediaren arpegi txarra bakarrik ikusten da. Baiña gaurko gaztedia be ona da, eta gaurko gazteak be gauza aundi eta sakonak egiteko prest egoten dira. EZ!, ez bakarrik droga, seksoa edo lapurketa... Or dozuez mundu guztira eldu diran gertaera bi: Kristo'ren Iraultza USA'n, eta Taize'ko Gazteen Konzilio-Batzarra. Or doguz gaztedi zintzo eta bulartsu baten erakusgarri argiak; or doguz gaurko gaztediaren eredu bi.

Gertaera biak garrantzi aundia izan dabe, eta jente askoren agoetan erabilliak izan dira. Gertaera bi oien barri emotea luzegi izango litzaken ezkero, gaur, Kristo'ren Iraultzatzaz zeozertxo esango dot. Ba-dakit gai au luzea dala, eta orregaitik ez noa geiegi luzatzera.

Asteko, galdera bat egin bearko dogu: ZELAN ETA ZERGAITIK SORTU DA ZIRKIN AU? Ba, esan geinke, USA'ko «hippiak» izan dirala asitzailleak. Danok dakigu «hippi» oien legea pake utsa dala. Eurak ez dabe nai indarkeririk, ezta gudarik, ezta alde edo tarterik be gizonen artean: eta orregaitik (mundu ontan ez dabezelako gauza oiek lortzen) beste munduaren billa joaten dira droga bidez.

Baiña, iñork ez daki zelan, egun batetik bestera euren jokabidea aldatu dabe. Ez geiago drogarik, ez geiago seksorik. Eurak izan dira «KRISTO'REN IRAULTZA» ren asitzailleak. Lenengoz, «hippiak» bakarrik izan dira mugimendu ortan; baiña arrezkero ainbat eta ainbat gazte bildu jakez zirkin ontan.

Lege bat bakarrik ezarri eben euren mugimenduan: ALKAR MAITATZEA. Iraultza onen asieran, bai USA'ko jenteak, bai USA'ko Eleizak, uste eben iraultza ori «moda» bat bakarrik izango zala, eta laster agortuko zala. Baiña ez da olan jazo. Iraultzak indarra artu dau eta USA'ko urietatik mundu guztiraiño eldu da.

Gazteak, Biblia irakurten asi dira; euren batzarretan gai sakonak erabilten dabez: txirotasunaren bearra; azkatasunaren mugak; Beste Bizitza; Kristo'ren gaztigu edo «mensajea»... eta abar.

Ez; eurak ez dira USA'ko Eleizakaz bildu. Euren bidea ezbardiña da. Euren tramankulu ta gitarrak artuaz, USA'ko uri guztietatik asi dira bizitza barrizten eta besteei laguntzen. Kristo'ren Iraultzak oiñarri bi ditu otoitza eta Biblia. Iraultzailleak esan daben lez, euren asmoa au da: lenengoz USA'n eta arrezkero mundu guztian Biblia zabaltzea.

Urrutizkiña artzean, ez dabe betiko «Hello!» esaten; «Jesus'ek maite zaitu» baiño. Euren soñekotan, Kristo'ren antz-irudiak eroaten dabez; eta sarritan «Negro Spirituals» deritxonak abesten dabez. Eurak, euren modura, Kristo'ren erakusbidea iragarten dabe alde guztietatik.

Len droga etxeak ziranak, batzar eta otoi tokietan biurtu dabez; len lizunkeri etxeak ziranak, orain beartsuentzat utzi dabez. Richard Hoaga, aita protestante batek esan dau, ez daula iñoz ikusi ainbeste kristau girorik bere bizitz guztian.

Harward'ko Unibersidadean be esan dabe, USA'ko kondaira guztian ez dala olako erlijio iraultzarik ezagutu. Kristo'ren Iraultzailleak gazteak dira geienak (amabostetik ogeitamarrera) eta es «hippiak» bakarrik; baita garrantzi aundieneko Unibersidade eta Ikastetxe nagusietan dabiltzan neska-mutillak be. Jente askok usten dau, laster ilko dala zirkin ori; eta «hippien» beste zorokeri bat dala; baiña USA'ko Eleiz gizonak ez dabe ori siñesten. Aita John Stafford'ek esan ez dala esan dau: «Ez dakigu mugimendu au sendoa izango dan ala ez; baiña bada ezbada, bai gaztediarentzat eta bai gure Eleizarentzat oso osasungarria iruditzen jaku».

USA'ko Eleizak be, Iraultzailleen alde jokatzen dau. Geienak fedearen kimu barri bat ikusten dabe zirkin ortan, eta beti lez Eleiz gizon batzuk ez dagoz oso konforme mugimendu orrekaz. Baiña alan ta guztiz, Kristo'ren Iraultzea aurrera doa.

Orain, bukatzeko, emen dozue Iraultzaille batzuen txartela: JESUKRISTO BILLATU NAI DA. Izen oneik be erabilten dabez: «Mesias», «Jaungoikoa'ren Seme» «Erregeen Errege», «Munduaren Jabe», «PAKEAREN ERREGE»... eta abar. Azkatasun zale talde baten burua: Onegaitik billatu nai da: — Bere itzak oso arriskudunak diralako — Sendakaia egin daualako eta ogia txiroei banatu dautselako bear diran baimenak ez euki arren — Txiroakaz, andra txarrakaz eta lapurrakaz alkartu dalako — Agintaritzaren aurka jokatu daualako.

Ezaugarriak: «Hippi» erara, jantzia; ule luzea; bizarra, tunikea, oiñutsik. Auzo txiroetatik ibilli; dirudun eta aberats artean adizkide gitxi izan. Basamortuan eskutatu.

Kontuz!: Euren itzak oso gogorrak dira: batez bere gaurko *munduarentzat*. Gizonak biurtzen dituz eta guztiagaitik azkatzen:

ORAINDIK AZKE DABIL. GUK GURA DOGU: BIZIA NAIZ ILLA.

EZKAURIATZA'TAR XABIER

ALDAKUNTZA SAKONAK

Oraingo gogoaren kezkak eta bizitzako izaera aldatzeak nastaera aundi batera beartuta dagoz, gogorapenen egikerari garrantzi aundia emonaz. Matematika ta izaera jakintzari goratasunik aski emoten jake, baiña batezbere, giza-jakintza deritxonari, nik uste. Jakite arazuzko gogoak, sakon sakonetik, aldatzen dauz inguruko kultur-maillak eta gogoratzeko era guztiak. Teknika-bideak, bere aurrerazpide guztiagaz, lurrari arpegia aldatu egiten dautso, ta olan, izarrak menperatu nairik ikusten doguz. Gizonak ikusten doguz ba iretargira joan-etorriak egiten.

Denporeagaz, gizonaren gogorapen aurreratzeak aundiagotu egiten dau bere nagusitza, bai joandakoetzaz, edestiaren ezaguntzaz, bai etortekoatzaz, teknikabidetik eta plangintza bidez. Bisizti eta gizarte-jakintza esaten dautsegunen aurrerapideak, bidea emoten dautsoe gizonari ez, bakarrik norbera obeto ezagutzeko, bardin oso-osoan, bitarteko izateko gizartearen bizitzan, teknika bideak bitarteko dirala.

Jakintza guzti onek, gizonari pentsakera ta bide asko ekarten dautsoz gogora. Pentsakera onekaz gizonak bear asko egin dau ta egiten dau; guztiak bere burua ilteko esan geinke, bonba atomika deritxona egiñaz. Ta orain egun batzuk, «antimateria» deritxona sortu dau, au guztietan aundiena ta kaltegarriena gizartearentzat.

Edestia be aurrerapide arin baten menpean dago; gizonari ezin dautsola jarraitu esan giñaike. Gizadiak be zori ez-bardiña dauko. Gizadia onetara, sortze geldi batetik beste gogorrago batera doa. Te emendik arazo barri batzuk sortzen dira, azterketa ta erabakitze barriak guri eskatuz.

RIKE'TAR JON

LEIO BI

Euskalerrian gaur egun, bi leio nabarmen ireki dira. Euskaldunak eta euskaldun ez diranak.

Erria maite, bere sustraiak arkitu eta zaindu, oitura, kultura ta izkuntza ikasten saiatzen diranak. Euskalerriko lurra, odola, bere mendien aundi eta edertasuna, ERRIA sentitzen dutenak, kondairaren zear egindako lanak ikasi, onartu eta errespetatzen dakitenak; eta euskalerriko beste milla eginkizunetan sartuta dagoztenak; oiek, oiek dira neretzako benetako euskaldunak.

Guzi ori egiten ez dutenak, oiek dira «besteak», au da, euskaldun ez diranak.

Zertarako ibilli ordea geiago naskatzen? Ez ote da errexago bakoitzak bere bidetik jarraitzea? Izan ala ez izan, esan zun noizbait gizon jakintsu batek. Bai ala ez.

Bi leio.

Dirudinez ordea, gaur, une onetan, euskalerrian; euskaldun sentitzen ez diranak, bere erriari uko egiten diotenak, ari omen dira nagusitzen, erriaren nortasunaz jabetzen.

Ori gezurra ba'litz, ipui txar baten irudipena emango nion, baiñan egia danez, ez diot ipui orreri batere «grazirik» arkitzen.

Gutxik dakite noski, zein diren orrela jokatzen dutenak, gutxik jakin oien jokabide kaxkarrak. Ala guztiz ere, erria jabetzen ari da, oso eginkizun naastuak direla, naasketa orretan ez bai dute beiñere arpegirik azaltzen.

Arpegia ematen ez dun gizona, beti iruditu zaigu «palsoa ta kobardea».

Erderazko esaera batek onela dio: «Aunque la mona se vista de seda, mona se queda». Oiek ere, berak nai duen eran jantziko dira, txapel eta blusakin. Jai-aldi batzuk eratu naiean ausartuko dira. Erriaren goraberetan, bere garrantzizko lotueretan ez ba'dira sartzen, arpegia ez ba'dute ematen; ez dira izango erri zaleak, euskaldunak, euskalerria maite dutenak, ordea.

Euskaldun sentitzen geranok beraz, bide bakar bat degu: Uko jai paltsueri, uko zalantzan dagozten gizoneri, uko erria maitatzen ez dueneri, uko euskera bearrezkoa ez dela aitortzen duteneri, ez geiago oieri jarraitu. Argi begi eta belarri, erne eta zuzen burua, jaso erria aurrera jarraituaz: Gure leioa zabaldu dedin alde batetik besteraiño, argia sartu bertatik eta aize osasungarri bat arnastu dezagun.

RAMON ZAPIRAIN

EUSKAL HIT PARADE

Urtarrilleko neurketa osoaren barria jaso dogu. Aipagarrienak: «Ama Begira Zazu» ren gorakadea; «Ezin aztu»k daroan iraun-bearra, ta Zorion'en «EZ» orren agerpena.

Irabazle, Bilbo'ko «Mocedades» taldea bere «Zure Begiak» abesti eder orregaz eta Zarate'tar Mikel'en itzekaz. Ona emen amar lenengoak:


1. «Zure Begiak», Mocedades'ek abestua.
2. «Orrela doa Mundua», Jon Enbeita'rena.
3. «Ama Begira Zazu», San Juan Bautista'koena.
4. «Aurra Seaskan», Urretxindorrak abestua.
5. «Mesias Sarritan», San Juan Bautista'koena.
6. «Ezin Aztu», Luis Mariano zanarena.
7. «Dringilin Dron», San Anton abesbatzarena.
8. «Markesaren Alaba», Urretxindorrak abestua.
9. «EZ», Egileor'tar Zorion'ena.
10. «Itxaropen Bat», Zarauz'ko Oleskari bikaiñena.

«Mocedades» taldea lenengo amabostekoan irabazle izan zan, eta illabete osokoan bere bai, ta uste dot ez dala erreza izango lenengo mailletatik botatzea, zati baten.

Jon Enbeita, disko au atara ebanetik, lenengoen artean ibilli da, ta il onen bigarren zatian irabazle izan da.

Lexona'ko «San Juan Bautista» abesbatzak abesti bi jarri ditu lenengo amar orrein artean, bardin Bergara'ko Urretxindorrak bere. Zorionak danori!

Gabon inguruko abestia izan arren, Bilbo'ko abesbatzak, oraindik bere, lenengo orrein artean sartzen dau berea, aurreko amabostekoan goian jarri zan-eta.



Luis Mariano'rengaitik ainbeste bider esan da-eta, barriz esan bear ete-dogu! Or dabil barriz goikoen artean.

Askok eskatzen dabelako ona emen Enbeita'ren abestiko itzak: ORRELA DOA MUNDUA.

Peru ta Mari'k ez dabe nai
semeen enbarasurik,
Praisku ta Loli'k ez dabe onartzen
seme bako ezkontzarik.

Libre nai du, ezkondu gabe,
bizi Patxi'k plazeretan,
Joseba barriz praille sartu da
danok maitatu gaitezan.

Eta orrela doa mundua
danetariko gizonekin,
eta orrela doa mundua
bere akts eta birtutekin.

Karmen negarrez, Maite barreka,
Pili'k ez daki zer egin;
Lanean jator dabil Andoni,
Iñaki lo amesekin.

Diru ta fama nai ditu Kepa'k
ta agintza Joxe Mari'k;
Jon'ek ez du nai saltzetan sartu,
egia nai du Luis Mari'k.

Txanton'ek baietz, Sabin'ek ezetz,
Agustin bata ez beste.
Miren kantari, Mikel dantzari,
moskorrik moskor Bixente.

Olatz aurrera, Lurdes atzera,
Arantza geldi erdian.
Xabier danen kritikalari
Manu danekin bakean.

Ta, danok, datorren illekoaren zain; landarak asi dira berbizten, ta giza-odola berotzen, ikusi dagigun abeslariak zer dakarkiguen.

Argazkian: Euskal ereskiñen bilduma zoragarriaren biribilla; ezin zara geratu entzun bage. *(COLUMBIA).*

LOURDES TA XABIER



LOVE STORY

Askok ikusi dogu irudimintza au, ta zanbaten agoetan entzun dogu «love story» itz biñako au...

Irudimintza amaitzera zijoala, bere begietan negar anpulu bat agiri zan. Lenen banaketan zan neska dotorea, ezkonbarria, gaixo gaizto batek (odolxuriak) mundu ontatik ataratzen dau, gaztea izanarren.

Mutilla, senar gaztea, ezkonbarria, leio aurean okertuta, bakarrik osatetxe aundian, burua esku tartean. Zelan aiztu ain amorio aundia?

Dana, ori dala iruditzen yaku; baiña ez. An dago bera, gerorako geratzen da.

Irudimintzaren aurrian gu, isillik eta larri geratzen gara.

Zer gertatuko yako? Bere gizontasuna nun geratuko da? Bere emazte itunaren illetara joango ete da?

Mutilla ez da katoliku. Berak ere ukatu egin zuan bere katolikutasuna, mutil aregaz ezkontzeko. Senar gazteak ez dau siñesten.

Bizia kenduko ete dau, bere maiteari jarraitzeko, illen mugak zapaldurik? Batzuek, antzeko egokeratan ori egin oi dabe.

Bere samiñak aiztuten, ardauari loturik aleginduko ete da? Baiña ardauak denpora gitxirako dau bere indarra.

Beste neska batzuen atzetik joango ete da? Ori be ez da maitasuna, ez dau betetzen.

Dana amets bat izan dala uste izango ete dau? Baiña... maitasun a, betikoa zala ez zirudian ba?

Ala bizia ukatuko ete-dau? Biziari itaunka erotu egingo ete da? Nork erantzungo dautso ba?

Bizia txorakeri bat dala pentsatuko ete-dau? Bizitzeko almenik ete-dogu, biziari elburu bat, txoratu antz bat emon gabe?

Ala... betiko bizitza bat, amai gabeko bizitza bat ikusiko ete-dau, bere emazte gaztearen joaneran, bere bizia izan zanaren iltzean?

Ez ete-diño bere barruan, nor edo nor ba-dala bizitza onen ostean? Beste leku batean, baiña, bere emazte kutuna bizi dala oraindik eta betiko?

Bear ba'da, Jainkoa derrigorrez izan bear dauala esango dau; Jainkoa ba-dala.

Baiña... orduan... zelan gertatzen dira orrelako gauzak? Ezin ete dau siñestu.

Zer egingo dau? Lanean itoko ditu bere esamesak? Nori eskeiñiko dautsoz bere izardiak? Iñori be ez? Orrela bizi al-izango ete dau?

Zelan erantzungo dautso bakartadeari?

Batek esango dautso, sentitzen dauala.

Besteak, mundu onetan gauza guztiak ukatzen dirala. Dana aiztuko dauala, maitasun barria be agertuko dala, ta barriz ezkonduko dala.

Baiña berarentzat, maitasun guztien ostean, ildako bat eta illeta bat baiño ezta izango.

Orain izango da aren buru apurtzea.

...Argituko da, agertuko da argia, argi bat... beste... «love story» bat...

eta bizia
zer da, au
ez ba'da?

PELLO

MAKAILLAU ARRAINTZALEAK

Makaillau arranintzalien arazoak beti izan dira garrantzi aundia daukatenak. Arrazoizko egi mardul ori ezin ukatu guk, bateze, arraintzale geranok. Zer esanik ez, makaillautako ebillerak latzenak dirala, joan bearrean urrutietako itxasoetara izaten diralako. Groelandia, Kanada'ko San Lorenzo ibai aundira edo beste Islandia'ko bazterretara. Dakigunez, itxaso aietan egualdi txarrak izaten dira, ta arraintzale gizajo oiek esan geinke beren ogi bidea laztasun aundiakin irabezten dutela.

Eskubideak, nolatan dauzkate oiek? Dakigunez, sei illabeterako ziñatuta joaten dira. Au da, kontrata ziñatuta... kontrata ori ordea, orain artean, ontzi jabeak bakarrik gordeaz, ta ontzietan dijoazteneri eman ez... Zergatik? Berak jakingo dute zergatik dan. Aurten ordea, arraintzale oiek beren eskarietan eskatu duena da, alegia, kontrata orren «kopia» berak ere bear dutela. Kopia orrek esan nai du, jabeak nai dutena, orain artean bezela, ez egitea. Kontu egizu, zerbait ezbear edo ezta-baiden bat sortzen ba'da, orain artean jabeak nai dutena egin diote arraintzaleari. Orain bi paper edo kontrata oiek len bañon geiago balio dute, ta orrekin dijoaz arraintzaleak.

1.944'ko kontratak, itzezkoak izaten ziran... eta itzezko kontratak ez du balio, bear dan tokian beren arrazoiak zaitzeko. Ezta-baidetan sortzen ba'dira naspilketak, arraintzaleak indar gutxi izan itzezko kontrata dalako. Orain sindikatua lortu nai dute, alegia; bi alderdiak izan dezazkela kontratak eta ez nagusiak bakarrik, bide ori zikiña ta zuzentasunik gabea dalako.

Legorreko makaillau langilleak bai-du laguntza, alegia, erretiroa eltzen zaionian ordainketak il arte artzeko. Bañon, begira ze nolako atzeratuak dauden itxasora joaten diran makaillau zaleak. Auek, sei illabeteko kontrata betetzen dutenean ta ondoren etxera etorri itxasotik... arraintzale ori joaten da etxera ta ezereztuta gelditu, ta berriro joan nai ba'du, beste sei illabeteko kontrata ziñatuaz joango da. Nola leike ori? Ez alda egokiago legorrekoak bezela eskubide berdiñak izatea? Itxasokoa, lanik latzena izanik, nola leike gero kontrata ezereztua izatea?

Legorrekoak, beste eskubide aundiak ere ba-dauzkate. Bateko erretiroak, besteko kinkenio ta abar; itxasokoak ez eskubide berdiñik... Sei illabete ondoren etortzen diranean arraintzale oiek gelditu oi dira, ez gaxotasun eskubiderik, ta ez sendagillearen laguntasunik.

Arraintzalea gaztea ba'da, etxera etorrita gero, nagusiak deituko dio berriro itxasora joan nai ba'du, bañon, zartzen ari ba'da, izan leike ez deitzea ta gizajoa, laguntasunik gabe bai gaxotasun seguru gabe te beste olako laguntzik gabe gelditu.


Nik galdetuko nieke nagusi oieri: Zergatik zartzean ez dituzte gero legorrean lanean jartzen? Itxasoan ainbesteko naigabeak igaro ondoren, sari orren egarri izan leike, ta legorrean dagon gaztea eraman itxasora.

Beraz, konbenio berri baten bearrean daude makaillauetako arraintzaleak. Orain arteko legeak, gaur ez dira aintzakotzat artzen. Gaur egunontako adelantuak ikaragarriak izanik batez ere ontzietan, sare ta elektroniak eta abar, zergatik ez ditu arraintzale gizajoak?

Gauzak itzez eta paperak ziñatuaz konpontzen dira. Legorrean bai dituzte olako aurrerapen aundiak, nola igandeko edo besteko pestak; eta ez itxasoan dagon arraintzaleak sei illabete luzean, itxas aserre artean, erdi itoaz, ta lanean, otzak beatz ta eskuak gogortzeraiño... ta beste olako naigabe uneak izan, eta ez ditu.

Makaillaua gero ta garestiago ordaindu bearrean geranez, zergatik ez dute arraintzale oien jornalak ere geitzen? Gaur egunean esan genezake makaillauak legatzaren antzeko balio daukala. Beraz, arrai orren balioak geitzen dijoazten bezela, jornalak ere geitzen joan bear luteke. A ze nolako egi mardula! Bete egin bera ordea...!

E. OZKIN



Gaur eguneko emakumearentzat bere Bankoan kontu edegia eukitea legezkoa da.

Lenago, aurreratua aurreski-gutun baten gordetzea aiña.

BANCO DE BILBAO

onek emakumeen eskubideak onartzen ditu

POLITIKA OARRAK

Beste lantxo baten agertu genduan lez, politikan ari diranak, geienetan, beintzat ustego edo teori batzueri jarraituz ari dira. Berez ez da sortzen politika egitura bat. Or dagoz ustegotzailleak, teoritzailleak, gizarte egiturak astertzen, kondairan izan diran egitura zuzen ta okerrak billatzen, danen alkarteaz, onena arturik, ustego barri batzuk ipinteko lengoen ordez, eta giza biziari bide barriak edegiten.

Teoritzaleak uste dabenez, eurek bakarrik egiten dabez gizartea zuzentzeko bideak. Batek be ez dau autortzen txarto dabillela, edo erruan dagonik. Baiña, ustegoak ze eginkizun dabe politikan, erri arazoan? Ez dot uste, ezelako azalpenik emon bearrik dagon emen, ba, danok konturatzen gara, kondairari begirakada bat bakarrik emonaz, ustegotzailleak euki daben garrantziagaz. Ez dogu ikusten gaur be, zelan goazen geienok, artalde bat lez, beste gizon baten atzetik, edo alako edo onelako alkarte baten ondoren? Ez dogu ikusten, erri-arazoetan zelako indarra daben Kristoren esanak? Au, Jaungoikoa zala ta dala erantzungo daustazue; ta ni enaz iñor ori ukatzeko, baiña, or da Marx batek itxi dauskun ondorioa be, esate baterako?

Ustegoen artean, indarrik geienekoa, zuzentzale talde-txikikoena, edo gidari gitxienena da: Onek esan gura dau, zuzendariak, errien gidariak, gitxienak dirala ta izan bear dabela, ta aginduak, au da, menpekoak, geienak. Oligarkiak (gitxienen agintea, edo batzuen agintea), bearrezko ta derrigorrezko dira edozein agintean, Michels'ek diñonez; edo gidari-talde txiki onetan, agure batzuek irabazten dabe gaur, eta biar beste batzuek, Pareto'ren ustean. Ustego onek, oso maixeatuak izan dira. Antzeko iritxiak izan ebezan, aurretik, Maquiavelo ta Rousseau'k be.

Ustego onei askok jarraitu dautse: esate baterako, Ameriketan, 1.920'gn, Lind'ek; 1.940'gn, C. Wright Mills'ek, eta 1.950'gn. Floyd Hunter'ek. Ez dago begiratzea baiño, zelan artu eben oiñarritzat, bertako alkargo txiki batzuetariko gitxienen indarra euren politikan.

Gaur, alderik geienetan, beintzat, askotasun bat, aginte ugaritasun bat agertzen da: Antza danez, eta niretzat argi dago, gizon bat ez da naiko, politikan dagozan arazo guztiak jakiteko, edo zeintzuk arazo dagozan ba-dakiz agintari batek, bera ez da naiko egal guztiak zuzentzeko, gaurko jakiteak milla adar dauazan ezkero. Urten daiala gizarte bateko egal guztiak zuzentzeko gizon bat: ez dago iñun. Origaitik, gaurko gizarteak, agintza banatuak bear ditu, lan eta arazo guztiak bide onetik eroateko, Raymond Aron'ek argi azaltzen dauan lez. (Irakurri «Classe sociale, classe politique, et classe dirigeant», Archives Europeens de Sociologie'n, 1'go lib., 1.960'gn. urtean, 281 gn. inguan).

Zuzendari talde-txiki onek, beste gizarteko talde txiki batzuetatik artzen dira, erri barruko alkargoetatik biltzen dira (Eliztarretatik eta abar...); aginterako indarra ta argibidea alkargo orretan ikasi ondoren.

(Jarraituko dau)

GARATEA

ONDASUNAK

Lagun bakoitzarentzat bearrezkoak dira ondasun laguntzailleak. Jakituri ain aundiz bizitzeari, bere inguruan bear daben laguntza zor jako. Gizonak era bitako ondasunak bear ditu bere izateari dagokionez. Gizona lurreko izakirik bikaiñean izanik, emengo ondasunik nagusienak be bereak ditu.

Bizien artean guk izan genduan bakarrik, adimen, naimen eta askatasundun sortzeko zoria. Almen onek dirala-ta, zuri zor jatzuz jakituria, maitasuna ta askatasunaren gozotasuna. Burudun ume guztiak argia eskatzen dau bere gizontasunerako. Barruak izakeraz, eskatzen dautso.

Eskubide oneri gizonak ukorik ezin egin leikio. Bere izateak eta gizartearen izateak bear dau batzarkideen jakiturizko laguntasuna. Biziaren zati bat dogu jakituria. Guk, bizidunok munduari aurrerantz bultz eragin bear dautsagu, Argi ori, oin ta emen, gizonaren onerako izan bear dau.

Mingarria dana da, gizonak gizonari argi ori ukatzea. Gizonari argia ukatzea, ez da egoki, ez eta zillegi. Iñori argia artzea ukatu legiken giza eskubiderik, lurrean ez dago. Argia ez da gizonak sortua. Argia izadian dago. Eskubideak be izadi beratan datzaz. Burundun gizakiak, berari gogoak emoten dautson eran ezin legike ezer be tajutu gizonaren kaltean.

Gizona ez da mundu barrien sortzaille. Egilleak gizadiarentzat sorturikoa, batu egingo dau, ta eder gisara lagunen aurrean jarri; ona agertu ta eder barritu. Argibideak era askotarikoak dira gizartearen bear-izanak asko diran bezela. Gizonaren biziak arpegi asko ditu bakarrean, sendian, errian, jakintza saillean...

Biziak berenez eskatzen ditu, arazo onei erantzuteko jakituriak. Jakituri onen zuzentasuna bere baitan dago. Sarri ostera, gizonari ukatu egin jakoz, berez, zor jakozan jakituriak. Kendu ezindako jakiturizko ondasunak ukatuta, negarrez, larri bizi dira lurrean erriak.

Giza-semearen bizitzak, berenez eskatzen dau beste erabateko ondasuna, dirua. Lurrean dagozan ondasunak, eraren baten, onartu ta euren balioa zuzendu bear zan. Ta gizonak, aspalditik ona, dirua jarri eban bizitzako gora-beren negurri bidetzat. Batzuen bizitzea ez da apartekoa ta askorena baiño ederragoa. Bizia iturri bateko emoia izanik, bizi guztiak dauka diruaren eskubidea.

Munduko egoera larri au, zergaitik ete da orduan? Gizonak bere antzekoak ezer eta geien maite ditu lurrean. Au egia da. Baiña maitasun bidezko orrek eragozpen negargarrizkoa aurkitu dau lagun biren erdian. Norbereganako maitasun traketz bidegabekoa. Guztia norberarentzat nai dau. Ta larregikerizko pillatzeak askori kentzen dautse ogia.

Biziak bakoitzarentzat eskatzen daben ogia Egiak edozeinentzat eskatzen dau, biziari eusteko bear dan ondasuna. Ugerrak jaten ditun ondasunik ez pillatu, Kristok, argi esan eban. Kristo etzan aundikeri zalea, lurreko ondasunak giza-semeen artean egoki ta zuzentasunez banatzea nai eban, lagunen bizi ta bear izanak eskatzen dabenez.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

GUARANITARREN ERRIA

Paraguay'ko elizaren jokabidea aipagarria dugu. Gogorkerik gabea, baiña ain zuzen ere, diktaduraren aurkako jokabidea. Batez ere Guarani erri berezi ta etnikoak, Paraguay'ko agintarien estukuntzaren eraso ta zigor gogorra darama.

Eraso-aldi izugarriak jasan-erazi dizkiote. Azkenez neurri aundian beren uztarria leporatu diote. Erroma'n, Jean ta Hildegard Goss-Mayr, bi izlari auek, Guarani erriaren egoera larria agertu dute. 1.968'garrengo urtean Medellin'en, «Latino-Amerikano» gotzaien biltzarrak jokabide bat aukeratu ta artu zuan: erri txiki auek aldeztutzekoa, alegia, erri auei beren babesa eskeiñi.

Zer esanik ez elizaren jokabide onek, erriaren kontzientzia esnaturik, Paraguay'ko agintariei buru-auste aundiak ekarri zizkiela. Baiñan luzapenetan ibilli gabe, erantzuera bat eman bear zitzaien. Orregatik agintariak, ertzaiña geitu ta indartu zuan, eta aunitz espetxeratuak eta zigortuak izan ziran.

Egoera larria benetan ura. Guaranitarrak egoera au ikusirik, espetxeratuen etxeratzea, ta biltzartzeko baimena ta askatasuna eskatu zuten, baiña etzuten ezertxo iritxi.

Naiz eta eurirako garaian ta urtekaroan aurkitu, ala ta guztiz ere, milla bat guaranitar bildu ta beren egon-eziña, beren jazarraldia azaltzera agintarien aurrera joan ziran. Agintariak agerkunde au ikustean, bildurki, gudariei ta ertzaiñei deituaz, tinko jarri ta erantzun zuan. Erritarrak ixillik ta euritan geldirik iraun zuten, denak bustirik, bost orduan iñora mogitu gabe egon ondoren, agintarien aurkezlariak azaldu ziran. Esanaz: entzuteko gertu zaudela, ta esateko zer eskatzen zuten; Baiña baldintza batekin: alkarizketarako abade bat eskatuaz.

Erriaren erantzuna, ezezko borobilla. Erriaren agerpen onen erantzule, iardestzaille, abadeak ez dirala, erria baizik! Azkenik erakuspenaren arduradunak onartu zitzuten, eta espetxeratuen askatasuna iritxi zuten. Baiña biltzartzeko baimenik, etzuten eskuratu. Bestalde, Bogarin gotzai jauna (C. E. P.) «Conferencia Episcopal Paraguay'ren» lendakari ta lenengo iardesle bezela, aita Monzon'i deitu zion, laikoen zuzendaritza emateko, alegia, laikoen eragikunak zuzentzeko.

1.971'go Otsaillaren 17'ko eguerdian, Asunzion uri-nagusira aita Monzon iritxi zan bezin laister, indarrez eraman zuten. Gotzai batzuk, Paraguay'ko agintarietara aita Monzon aldeztera ta bere alde zerbait egitera joan ziran. Aita Monzon'en aitzindari, edo Gotzaiburuak, egazkiñetik lurra zapaldu zun unean, ertzaiñak bialitako emakume ertzerakoi talde batek, Gotzaia jo zuten eta bultzaka ara ta onera erabilli zuten. Eta au gertatu ondoren Jaurlaritzaren buruzagiak etzuan atotsi, beste «ministro» bategaz mintzatu zan.

Onek, agiri bat aurkeztuaz, aita Monzon tupamaro taldeko antzo, alegia, talde ortakoa zala aitortzen bait zuan. Aitorketa au egunkarietan agertu zan. Zer eratako baldintzetan eta zer girotan izenpetuta zegon jakin nai arren, etzuan garbitasunik atera. Ba-dakite aita Monzon'ek agiri ori, oiñazaren eta estukuntzaren indarrez izenpetu zuala.

Aitortu-erazitzeko era aunitz dituzte, ta oietako bat, pileta deitzen diotena da. «Pixez eta K-kaz betetako ontzi batean gizonaren burua sartuaz, irentsi-erazi arte ta gero aitortu arte. Agintarien zuzengabekeria ikusita, eliza auegandik atzeratzen asi zan, eta orain erasotuak aurkitzen dira.

SAGARTZATZU'TAR JOSU


ONA
ta
ŗAM
EZNEAK
ZUK
ONARTZEKOAK
DITUZU

IDAZTI BARRIAK

Izena:
LENGUA VASCA DE HOY Y DE MAÑANA.

Egillea:
Aita Justo Ma. MOKOROA (IBAR).

Argitaratxaillea:
Editorial AUÑAMENDI.



Gaiaren garrantziak eta labur izateak erreztasun aundia damotso irakurleari. Antripoloji II asterako egin ziran itauneri erantzuten dautse Aita Mokoroa'k, ez eban bere garaian erantzuteko aukerarik izan-eta.

Mokoroa Aita, apal bezin jakintsu agertzen da idaztitxo onetan, ta akatsik ba'leu, gaiari dagokion garrantziari begiratu ezkero, laburtasuna litzake. Iñork baiño obeto ezagutzen dau Aita Mokoroa'k gure izkuntzearen muiña, naizta bere ikasle asko, gaur, bere sasi-maixu lez jarri nai. Ta jakituri guzti ori luzeago azaldu bear leuke... ea «Ortik eta Emendik» argitaratzen danean orrenbeste lortzen dogun.

Erderaz gertatu ebazan erantzunak, eta orrela agertzen dira idazti onetan, lenengoa izan ezik, ta azkenean, AGUR'en euskeraz argitaldutako alkar-izketea dator, gure Gotzon aundiak berakin egindako alkar-izketea. Bertan gure, Mokoroa jaunak, euskerari buruzko bere iritziak azaldu ebazan, Antropoloji II aste ori baiño askoz lenago.

Idazti ezaugarria, egiaren billa dabiltzanentzat, baiña, nere ustez, egia barik «norberaren egi» billa diarduenentzat, ez da ain atsegiña izango.

Azkenez, Mitxelena jauna lasai geratuko dala uste dot. Liburu onen itzaurrea Estornes jaunak berak egin dau, baiña gure Errenderi'ko adiskidea, neuk egingo ete neutsalokoan artega egoan. Ez daukat bere aurka ezer, naizta sarri bere jokabidea makillatu edo, obeto esateko, bera estalpetzat artu dabenen jokabidea.

Ez naiz iñoren jakintzagaz jantziten, ezta iñoren «lumakaz» apaintzen, baiña bere inguruan dabiltzanak, edo ibilli diranak, bai.

Beraz, begoz danak lasai, ta borondate oneko euskaltzale guztiok Aita Mokoroa'ren idaztitxo au irakurri. Ez zaree damutuko-ta.

ARENAZA'K

Izena:
SEKSU-EZIBIDEA.

Egillea:
Sergio BIGATELLO.

Itzultzailleak:
Juan GOIKOETXEA, S. I.
Jesus GAZTAÑAGA.
Talde Teknikoa.

Argitaratzaillea:
ETOR.—Ediciones Mensajero. Bilbao.

Irudigiñak:
Anna BIGATELLO, Carlo Alberto MICHELINI.

LIBURUA

Berrogeta zortzi orrialde zabalak ditu liburu onek. Bere azala margo ederrez eta barruan margodun irudi egokiak ditu. Liburua ederto egiña eta ElBelgas irarkoleak lan txalogarri bat aurkeztu dausku.

GAIA

Liburuaren gaia gaur-gaurkoa da. Seksual-arazoak beti izan dau egunekotasuna, baiña gaur iñoz baiño geiago bear ba'da. Alde batetik Eleiz-Batzar nagusiak eskonduen eta eskongaien artean sortu dauan giroa, eta bestetik gaurko gizonaren izaereak eskatzen dauen aztertzea dira ardura onen iturri bereziak. Eta au «Humana Vitae» idazkiak munduan sortu dauan erantzuna aztu barik.

Lenengo itzultzailleak atari bat ezarten dautsoe libururi: «Eziera guzia biziro zailla da... eta liburu onen jomuga, egia esan, giza-eziera osoaren billa gazteeri eragitea eta laguntzea da».

Gero amaika zati ditu: gizonaren eta emakumearen ernal-apaillua zelakoa dan agertu ondoren, seksual-artuemonetan diran legeak eta erditzea azaltzen ditu. Gero giza-seksuaren gaitzak eta akatsak ta azkenez seksuaren alderdi psikolojikoa ta gizartekoa.

IZKUNTZEA

Gipuzkoera garbiz eta leunez idatzita dago idaztia. Izkuntzea garbia, argia ta ederra da, bizkaierea ondo ezagutzen dauanarentzat ulertzeko erreza.

Gai onetan liburuak beste laguntza onuragarri bat be ba dakartso gure izkuntzeari: Erriak aiztuta izan ditun itzak gogoratu, eta, ba leiteke bearrezko ziran itz barriren batzuk irakatsi. Azkenengo orrialde bietan iztegi labur eta bearrezko bat ezarri dautsoe idaztiari. Norbaitek esan dauana lez, erabilli gabeko gai bat dan ezkero, iztegi barri baten jabe egiteko liburu egokia da.

OLAZAR MARTIÑ'EK

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

Bilbo'ko Academia de Ciencias Medicas'en sortzetik 75'garren urtea beteten zalako, ta Deusto'ko ta Bilbo'ko Ikastola Nagusien laguntzagaz, Bazkun arek berak antolatuta, Bizkai'ko Aldundian ospatu zan Euskal-antropolokiaren Lenengo Astea, Erki onetako eta Bilbo Uriburuko Batzarren babespean, Lenengo Aste orretako itzaldi eta mezuak argitalzeko agindua «La Gran Enciclopedia Vasca» argitatzailleari emon eutsoela, 25 gaitik gora aztertzen dira, ara batzuk:

Kondaira aurreko euskal-gizona ta bere gaurko egozpena.—Jose Maria Basabe'k egiña.

Odolezko agerpenen izatea gure errian.—Au, Jose Luis Goti Iturriaga'rena.

Sikolugu arazoak, gizartekoak eta legezkoak, Euskal-Erriko sorginkeari buruz.—Julio Caro Baroja'rena.


Euskotarren pentsaera ta arpegikera.—Jose Manuel Barandiaran'ena.

Euskal-Sikologiaren bidez, Bertsolarien argitasuna.—Manuel Lekuona'rena.

Euskal-abestien morfologi ta berezitasuna.—Francisco Escudero.

Gure Erriak legeari buruz daukan zentzuna.—Adrian Celaya'rena.

Kondairako mende bitan, euskotarrei begira.—Andres E. de Mañarikua'rena.



Lan bakoitzaren amaieran, itzulpen-laburketak dira, euzkeraz, gazteleraz, prantzeraz, ingelanderaz, alemaneraz, errusieraz eta japoneraz. Idazti garrantzitsu onek, euskeltzale guztien artean arrera ona izan dau.

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA.—Apartado n.º 1.510.—BILBAO

Egiztatu egizu zerorrez

BYASS 96

diñoen aiñako garaitsua dala...



GONZALEZ BYASS

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

Elduayen

Gipuzkoar erri polit onen berririk ba ote dezu?

Emengoxea genuen «Santa Krutz Apaiza». Bertako baserri «Samoa» deritzanean sortua.

Zure liburutegian baldiñ Orixe'ren «Santa Krutz Apaiza» deritzan idazti zoragarrik ez ba'dezu, erosi ezazu eta andikan gure txoko onen berri ere izan zenezake.

Mendi-erri ontakikantxe «Agur» onen irakurleei nere agurrik anaikorrena bijuakioe.

* * *

Mikel Soroa pelotari trebea erriko semea degu. Donosti'ko eguneroko batek aurtengo kirolaririk onenen izenak eska ditu, eta pelotagayan gure erritarrak irabazi du.

Zorionak, Soroa, ire garaipen berri onegatik.

Eta gure gaztediak ez beza aaztu! Eta euskal jolas au ez bezate baztertu, arren. Orren pelotaleku ederra izanda, gureak ez diran jolasetan jardun? Ez dek bidezko.

* * *

Eunka urte dira gure errian oitura eder bat degula.

Eta oraindik eusten diogu, eskerrak Anaidi bati. Anaidi onek oso zaarra izan bear du eta bere egitekoa jatorki betetzen du.

Aurten ere elizkizun oiek ospatu berriak ditugu eta erriak ongi erantzun du; erri ontan bi-iru bider Mixioak eman izandu dituan, Aita Zubiaga etor zitzaigun Loyola'tikan itzaldiak egitera. Bai ondo egin ere, berak beti oi duan bezela.

Elduayendarrak! Ez ditzagun gure aurrekoetatikan artutako oirurak galdu.

* * *

«Agur» onek ere egindu sarrera emen. Ongi etorria bedi!

«Zeruko Argia» banaka batzuek etortzen dira. «Goiz-Argi» da emen ezagutuena, ia etxe danetan irakurtzen da. Baita «Anaitasuna» banaka batzuek ere, ez Bilbao'kua ordea, irugarrendarrentzat illero argitaldu oi dana baizik.

* * *

Aurreko batian auzoerritar batek galdetzen zian ia nun sartu diran orren ongi idatzi oi zuten idazle batzuek... Eta izen banaka batzuek gogoratzen zituan. Ona emen bat edo beste: Errenderi'ko «Añarbe», Ordizi'ko «Txepetxa», Tolosa'ko «Uxola» eta abar. Ain pozik irakurtzen genituan da!

TALOJALE

Arratia

Urtarrillaren bian eta otsaillaren seian, igandez, beetik gora ta goiyik beera Arratia zearkatu bearrean nintzalarik, iru erritan izan nintzan.

Zeanuri'n.—*Gorbea ta inguruak zuri-zuri, «Gorbeatarra»ren bosteko beroa, euskeraren onerako ekiteko artega ta urduri.*

Arteaga'n.—*Euskerea aitzaki-bideizat darabillen auntz-bizardun makurrak ez dabe izan zeregiñik, oraindiñokoan beintzat, emengo gaztedian. Gazte aurrelariak Erriagaz bat datoz gizaldietako gure oitura zaarrai jarraituz.*

Amabietan izan gendun meza aretan pozik izan giñan bertaratu giñan auzo-errietakoak: abesbatzeko, Jauna artzen eta mezako zeregin-laguntzaille, gaztedi sendoa ikusi al-izan gendualako. Besapeetan ez dabe azkurarik, gurasoen LURRA ez dabe nai saltzerik, Erriaren euskera gura dabe. Aurrera bada, eusko gaztedi, eta zuri, Bernaola'tar Bego, AGUR zale guztion «ongi-etorririk» beroena.

Arteagatarrak ba-dabe, zoritxarrez, edesti edo istori baltza bere; kristau-erri osoarentzat lotzagarrienetarikoa. Eunen bat gizon-andrazkok osaturiko Agatezale abesbatz ospetsuak, aurten ere ez dau lortu erriko enparantzean abestuteko baimenik, eta eleizpean abestu eban, lapur antzeko eskea erdi ixillean bete, ta... anka egin bear aguro. Beraz, buruz atzeratuak diran umeen gurasoak eta ume gaixoak ez, dabe larritasunean izan bearrik gure errien batzuetan buru diranakaz zorretan diralakotan.

Arantzatzuti'k.—*Bide labanean dabiltzan gazteekin izatekotan, goizean goiz izan nintzan; alperzarrok baiña, gabean errondan, eta goizean logura... Gazte txiki gaztetxuak ikusi nituan, oneik baiña txitxiburruntzi edo basokoipetsua zala-ta, arrautz, urdai ta egunerako urdail-ornikiak bizkarreraturik Argiñao'rako bidean gora jarri ziran.*

Eriotzak eta Jaiotzak.—*Joaterik iñork nai izan ez arren, guztiok joan bear-eta, epe laburrean iru eriotz izan doguz eusko-sendian.*

Zeanuri'n, Iturbe'tar L.; Zeberio'n, Etxebarria'tar F.; Erramon Arantzatzu zalearen aititea; Arteaga'n, osaba Alpontso.

Goyan Begoz il diranak. Eta ongi-etorria Asier izenez kristau egiña izan dan Pili ta Xabier'en lenen semeari. Zorionik biozkerrenak guraso eta aitita-amamari (Paulatxo ta Manutxo'ri).

LANDAJUELA'TAR A.

Zeanuri

Gabonetan Ipiñaburu'n euskal-antzerkia. Arantzatzu'ko gazteak guztiz pozik itxi ebezen ikusleak, eta gogor txalotuak izan ziran. Gazte jator eta trebeak eurak. Zorionak.

Ipiñaburu aitatu dogun ezkero, abesti bat datorkit burura, ona emen: Eleiz giltz-zaiña, edo serorea edo llaberea ei zan ezkondu zana, eta,

Ipiñaburu dago alturan,
Undurragaren buruan.
Ikazgiñagaz eskontzen danak
es dau zentzunik buruan.
Ezkondu nintzan ezkondu,
baiña ondo damutu;
ikazgiñaren lapiko zarra
aundia baiña bastua,
abadearen lapikotxoa
txikerra baiña gozoa.

Parkatu, irakurleen artean abaderen bat ba'lego, ta, ez asarratu, abesti au antxiñakoa da-ta.

Areatza'ko monjatxuak Klausurakoak dira, sarritan joaten gara lekaime oneri ikertaldixo bat egitera ta pozik artzen gaitue, ba, euren artean erdera erabilten ei-dabe gaiegian, erdeldunen bat be bai ei-da-ta, eta errian bere olan egiten dalako, ta abar. Baiña joaten garan guztietan guregaz euskeraz abestu ta jarduten dabe, olan egiten dautsegu-ta, eta zaletasun aundiagaz ikusten doguz eurak bere. Bein, euretariko gaztetxuenak iñoan: «zelako zertxoa egiten daben euskal abestiak». Bai Garbiñe, zuri bai ta guri bere bai, Euskalerrian gagoz-eta, ez da orrelan...?

Zeanuri'ko Alkiber auzune guztia ia ondaturik aurkitzen da, Bilbo aundi orretarako potzua egiten diarduela-ta. Itandu Apoita'ri, zerztzelada geiagogaz jakin gura dabenak, berak esango dautzuez oraingo ta lenagoko barriak ondo baiño obeto.

Baiña goazan gaurko gure oar onetara: bertara dabizan kanbioiak, arri nagusiak daroezela, zergaitik, an, or, emen arriok galdu ez dagiezan, ez dabiz begirune aundiagoagaz? Kontuz ibilli mezedez, zeozer pasau ondorren, ez da ezer esan bearrik izaten-eta.

Nun dira ardurea artu bear leukeenak, ala gauza batzueri larregi ta beste batzueri bat bere ez?

GORBEITARRA

Arrasate

IBILLALDIA

Datorren Orrille'ko 15'gnetik eta ill bera-ren 30'ra bitartean ibillaldi bat izango da Erroma'ra, emengo Pantzeskatarrak eratuta. Ibillaldi onetan Erroma'gaz gaiñera beste Itali'ko uri eder ugari ikustatuko dira. Guzti onen salneurria 10.500,— pezeta izango da, ta jun nai duana, zuzendu daitela emengo Pantzeskatarren lekaide-etxera ta bertan emango zaio zertzelada geiago.

DEUN AGATE

Antxiñako oiturai jarraituaz Agate Deuna' ren bezperan urten ziran talde batzuk basarri eta keleak ibilliaz abesti politak abestuten. Talde onein artean bat «Legarre» izenegaz ezautzen dana izan da, ta 25 urte baiño geiago daramazki, urte baten utsik egin barik. Euren abestiak ez dira abots bakarragaz abestuak, baizik bi edo iru abotsez eta olan entzungarriagoak izaten dira; abots zoli eta garbiak dituzte. Igaz 110.000 pezeta batu zituzten eta orrez gaiñera jaki eta edariak bere bai. Guzti au emengo Erruki-Etxea'rako izaten da. Jakiña, egun luze orretan abeslariak ere jan eta edan egin bear izaten dute ta batzen danetik zerbait artuaz egiten dute bazkari ta aparia. Eta au izaten da ogi zuku ta arraultz eta txorixuakin egiñikua. Talde onek aldakuntza batzuk izaten ditu, batzuk «zaartu» egiten dirala-ta, eta gazteak oien ordez sartu. Ba-dira baiña 25 urte daroezenak talde ortan batere utzik egin barik. Noiz arte; «Kurri». Resusta, Sologaiztoa eta abar? Jarrai aurrera! Talde onen saiotxo bat Loiola Irratiak jaso zuan bere «Radio en Marcha» saioan, eta olan Irrati orren entzule askok entzun al-izango zuten.

Beste talde batzuk ere urten zuten eta oneik ere ederto abestu, baiño, tamalez, gazte onen berbetea geiena erderaz izaten zan eta txarto emoten dau baserritarren jantziakin erderaz mintzatzea. Zaiatu gazteak euskeraz ikasten.

LENENGO JAUNARTZEA

Oraindik urruti ba'da ere, ume talde aundi bat gertatzen ari dira, datorren Orrilla'n egingo dan Lenengo Jaunartzerako. Aurten, lenengo aldiz, Ikastolako umetxuak egingo dute, bada orain arte gaztetxoak izan dirala ezin izan dute egin izan. Euren gertatzale Etxebarria'tar Xabier apaiza dute, ta umeak pozik joaten dira bere erakutsiak jasotzera. Ez da olan Dorletatxo? Ez dute salgai euren Don Jabier.

ERIOTZA

Orain dala gutxi, Unamuno'tar Eusebi gizon gazte euskaltzalea il da, bere 27 urtegaz. Nere samin-agurra bere emazte ta beste senideai. Goian Bego.

BATZAR BAT

«San Felipe Apostol» izenez ezagutzen dan Bazkunak, lengo baten izan eban bere urteroko Batzar Nagusia. Bazkun onek 100 urte baiño geiago ditu eratu zanetik eta erriko seme euskaldun geienak bazkide dira bertan. Bere zeregiña, etxean eriotza danean diru laguntza izatea. Igaz zituan gora-berak onexek izan ziran: Diru-sarketa: 367.731,24 pezeta. Ordaiketak: 353.950,90, eta irabaziak: 22.731,24 laurleko.

UDALAITZ

Bilbao

BEREBILLEN EMAKUME AUTOLARIAK

Gure Bilbo'ko kale medar-estuetarako berrogei belbilari barriak doguz. Eurak zuzenduriko berebil nagusi orreitan bilbotar orok eguneroko zeregiñetan al dogun nasaien arat-onar ibilli gaitezan.

Euretatik zazpi emakume belbilariak, «primera bereziko» belbil-agiria artu dabenak beraz. Lenenak ei dira, Euskal-errian ezeze, baita Ibertar lur-adar osoan ere.

Onez gaiñ Udaletxeak beste amairu uri-berebil gorrizka andi-luzeak be antolatu ditu, berebil zarreenak alboraturik, premiñazko arazo onetan. Barriztatze onegaz gure eguneroko eginkizunetan darabilguzan joan-etorrietan, erdi patxadaz ba'da be, ainbeste itxaron bearrik izan ez daigun. Ala ta be lan latz, gogorra benetan leporatu dozuena neska gazteok! Guraiñ zarata, erremuskada t'abar, gaur eguneko iraduz ta artegatasunez beteriko giro gogaikarri ontan jasan bearra dozue egitan.

Baiña ogeigarren mende aurreratuan, gizonezkoentzat ta emakumeentzat bardin, eskubideak ta betebearrak pare parean dagozanez, adoretsu ta zuen irribarreaz bilbotar guztioen gogaldiak alik ondoen leundu dagizuezan. Eguneroko zeregin bikaiña egiz zuena.

Oingoz beintzat gizalabeen lan berezi au «Urdiñak» izentaturiko berebil txikietan izango dalakoan gagoz.

BARAKALDO'TIK BILBO'RAIÑOKO BIDEA

Beti be beti zailtasunez beteriko auto-bide au ba'da, arratsaldeetan oba dala deritxat oiñez batetik bestera joatea. Eroapena galdu barik egin lei. Joan dan illean gabon aurretik nere kanpotar lagun bat ta biok berebil txiki batean giñoiazala ordu osoa bear izan genduan Bilbo'raiño eltzeko; seirak inguru ziran Barakaldo'tik urteeran ta zazpirak jota Bilbo'ratu giñanean. Gabon inguruan ordu bi bear izan dituzala lagun bateri entzun dautsat.

Deusto aldetik zubia gora bera, txarto ba'gabiltz ibilli, zer desakegu Nerbion ibaiaren ezkerraldetik! Oba litzake ixiltzea edo berbaldi gitxiago ta eginkizun geiago egitea. Nor baiña arduradun?

Batak besteari pelotea jaurti, ta guenez aspaldiko esakera... sabela betea daukat eta... besteak or konpon!

ARREGI'TAR JOSU

CASCO VIEJO

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

TENDERIA

Boutique
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

Euskal erriko gizon ospetsuak

ALTUNA'TAR JUAN M.ª BLAS

Organu-jole, ereslari, eresgillea, 1.028'ko otsaillaren 2'gn Durango'n jayo zan, eta 1.868'ko bagillaren 12'gn Lekeition il. Bere aita ta ama moduzko, eradun beargiñak ziran. Jakitune bizibidea emon gura eutsoen, baiña umea soiñulari zale andia izanez, musika gai ta arauak irakatsi eragin eutsoezan, Cuenca'k Katredral Kapilla Maisua D. Higinio Herrera irakasle zala. Onek, beingoan, Altuna'ren trebetasun ta erreztasun aundiak ezagutu ebazan. Eta garasoi aolkatu edo burubidetu eutsen, orduan Arrasate'n bizi zan kontrapuntista ona zanagana, Aita Larramendi'rengana eroan egiela. Larramandi'k musika gai arau guztiak irakatsi eutsozan eta, urte bian eratu ta atera eban ikasle gustiz aurreratua.

Kontrapunto ta ereskian-musika jakintzaz bete-beterik, biurtu zan errira, eta bertan asi musikagintzan, ta agur-abesti, soiñualdi, eresti, elizgaiak eder ta politenak antolatu. Ikasketak oberendu, biribiltzeko Eslaba irakasle ospatsuagaz, ta berari musika lanak agertuteko, 1.849'gn, joan zan Madril'era. Oneik aztertu, ta pianuz ta batez be organuz jota, Eslaba arritu, miraritu egin zan; Altuna mutil burutsua, doaitsutzat artuteraiño. Ta erebagi eban bere ikaskaiaz eta aolkuz laguntzea, baita ango leiñargi, izendun laguntaldeai aurkeztu ta agert-arazi be.

Arritasun, mirekundea zan danentzat musikalari au erdi itsua izatea ta osasun gitxikoa. Musika-irakasle aindieneri Eslaba'k goratuz, Madril'etik Paris'era urten eban. Emen obeto ta geiago ikasiaz, bere ertiera zabaldu ta geitu yakon. Eresti asko ta diztirakorrak eratu ebazan talde-jakintsuak txaloturik eta pianuzaleak soiñuz euren edertasunak agertuaz.

Abegi onena egiten eutsen danak, erabilten eben txaloka ta goraka areto, gela-nagusi ta batzartegi guztietan. Onetariko, areto bat bere aberriko Uribarren'tar Xabier'ena zan. Diru-etxe jaun onek Paris'en eukanez etxe ta bizimodua, lagundu gura eutson, ta ainbeste txalo ta goraltze artean Altuna'ren osasuna gero ta txarrago ebillela ikusita, esan eutson ea gura eban Lekeitio'ko Santa Maria eleiza nagusiaren organu-joile izatea. Uribarren'ek berak organu eder bat eleizeari opari egingo eutson, ta alan bere musikalari zaletasuna bere. Adierazpen eskuzabal au, entsutean, Altuna'k poz-pozik baieztu eutson, bete ongillea onetsiz ta goratuz. Beingoan, ba, etorri, zan aberrira, osasuna eta indarrak an luzaroago egoterik ezeutselako itxiten. Illebete batzuk ondoren, osasuna zaindu ta indarrak artuta, Santa Maria eleizako koruan organu ipinten jardunez, lanari ekin eutsan, organuz ta pianuz bere ertia su ta gar landurik.

Zortziko politak egin ebazan; samurrak eta jatorrak ziran; eskuetatik kenduten eutsoezan, eta ondiño banaturik dabiltz, eta batek baiño geiagok beste egillaren batenak dirala uste dabe.

GERNIKA'KO ARBOLA'REN musikaeresia be Altuna'rena da. 1.853'gnean, eratu eban. Abeslari ospatsu Iparragirre'k kanta ta zabaldu eban, Europa ta Amerika'ko errietarik erri ebillela. Au diño ziur «Yrurak bat»'en albistariak, jabe onek diñon lez, berak entzun eutsan abestuten Altuna'ri etxean. Altuna'k idatziriko lenengo eskutitz-manuskritoan egoan Bilbo'ko Campo Volantin'eko idaztegian. Au zoritxarrez erre ta kiskaldu egin zan. «Unión Basco-Navarra»n, idazkai izendun «El maestro Altuna y la música del Gernikako arbola»n, D. Antonio Manuel de Arginzoniz'ek be Altuna dala «Gernika arbola» musikaren jabe edo egille diño.

Ainbeste doai gaiñekoen ondoan, ertilari ospatsu onek, ba-eukazan beste gaitasun baliotsuak be, onetariko bat, itzlari jakitun erreztasun andikoa izatea.

Itsu edo erdi-itsua zan eta, egunero ume batek irakurgaiak irakurten eutsazan; bein bakarrik entzuteaz buruz eukiten ebazan. Ain ederra zan bere oroimena! Idazteko tresna makiñatxu baten jabe zan, eta beragaz ikusgarriak egiten ebazan. Altuna'ren idazkiak artuten ebezanak ori diñoe.

LETONA

Filolojiazko jardunak II

Euskera ta katalanera

Izkuntza bi auen artean ezberdintasun aundiak daudela edozeiñek antseman dezaioke. Izatez, kondairez, literaturaz, kultura bidez, mintzo-edaduraz giza-indar eta etorkizunez, xeetasun oroz ez dute alkarren antzarik. Bata besteangandik oso bestelakoak ditugu. Bakoitzari buruz esan ditekena ezin berdiña izan. Batari dagokiona ez bait datorkio zuzen besteari. Arentzat bidezko dana onentzat gerta diteke oker.

Jakintsuek «ejenplafikazio» araua deritzaiena, au da, lagun urkoaren legea eredutzat beti artzeak sarritan elburu okerretara garamazke. Katalanera ez dugu ez auzokide ez aide. Onen iturburua latin eta erromatar izkuntzetan dago. Gure jatorria, aldiz oso illun eta bakana, naiz inguruko izkuntzetatik askotxo artzen joan baldin ba'gera ere.

Luze-laburrean, aundi-txikian, mintzaleen ugaritasunez eta kulturaz ez daukagu, zoritxarrez, katalanekin aldeatzerik. Katalanerak menpeko sei milloi biztanle ditu gogoz mintza eta ezpaiñetan darabilketenak.

Gu, berriz amar aldiz gutxiago izanik, zenbatek itzegiten dugu egunero eta ogibideko jardunean...? Ontan datza euskera ta katalaneraren arteko ezberdintasun gaitza. Eta au da gure asmo ta xedeak agertu aurretik gogoan artu bear duguna.

* * *

Gu, geuk, guziok! euskera katalanera eldu dan maillara irixtea nai genuke. Izkuntzaren batasuna batik bat idazkeraz lortutzea, euskera erreztu, sendotu ta indartzea bait litzake, Bide ortan Catalunya'n antziñako lanak alde batera utsita «Renaixenca» barruan (1833-1933) urte arteraiño ez ziran gelditu. «Jocs Florals deituak katalan literatura asko legundu eta bizkortu zuten. 1861 urtean alkargo orren buru zan Manuel Lasarte jaunak ortografia batutzeko asmoz orduko katalandar idazle garaienai deia egin zien billera batera etorri zitezen. Gutxi bildu ziran eta aiek iritzi zeberdiñekoak. Ezin, bada alkar aditu. Mila i Fontanals eta Bofarrull aurrez-aurre mokoka aritu ziran. Gaiñerakoak ere alatsu; batzu oitura zaarren aldekoak, besteak berrizale... Asarre bizian alkar agurtu gabe sakabanatu ziran. Eta gauzak bere ortan jarraitu zuten urteen buruan.

Katalan Izkuntzaren Akademia bat sortzea bearrezko zala uste zuten geienak baiñan ezer gutxi aurreratu zuten bide ortan.

Nola nai, 1.872 urteak zerbait berri ekarri zioten: «LA RENAIXENÇA» aldizkaria agertzea. Anjel Gimera izan zuan zuzendari. Eta onek iñor mindu ta beartu gabe errebista berriari giro zabala, idikia eman zion. Maisutzat Mila ta Fontanals eta Bofarull aitortzen zituan. Auek ez ziran alkarrekin ondo antolotzen, ordea, ta idazkera gaiak betiko eran zirauten. 1.877 urtean Gimera'k sari nagusia irabazi zuan bere: «L'any mil» olerkiaz. Urte artan bertan Xinto Verdager «Atlantida» poema bikaiña zala-ta katalan olertiaren gaillurrera eldu zan. Onek katalanzaleen biotzak suspertu ta beroru zituan eta berriro 1.879 aldera Katalan Izkuntzaren Akademia sortu bear zala oiuak entzuten ziran nun nai...

«Bones Lettres» Errege-Akademia zeritzanak «Jocs Florals» alkargoko gizonei soka jaurti zien, lokarri bat katalaneraren aldeko asmoak lotu al izateko asmoz... gramatika ta ortografiari buruz.

Gimera ez zan batere gramatikazale ta are gutxiago izki-mizmietan ibiltzeko adiskide. Alare, olakori esan, besteari otsegin, urlia deituaz. 1.881 urtean onoko jaun ospetsuak bildu ziran: Balager, Mila i Fontanals, Llorente, Bofarull, Rubio i Ots, Verdager, Gimera ta ez eragozpenik gabe eratu zuten azkenik Katalan Izkuntzaren Akademia.

Baiñan lenengo batzarretik alkarren artean samurtzen asi ziran. Bakoitza bere aldetik zebillen eta batere erabakirik artu gabe alde egin zuten nor bere bidetik joanez. Eta onela urteak igesi zijoazen.

Ez zan errez ez atsegiña izan berriz katalan idazleak biltzea. 1.915 urte aldera alare bigarren txanda ezagutu zuan Akademia dalakoak eta Belari, Blanch eta beste batzuen asmoa Ortografiari buruzko batasunarena alegia, aztertu zan. Proyekto ura aspaldi Bofarull eta Mila i Fontanals jaunek aurkeztutakoaren antzekoa zan. Ez zioten arrera onik egin. Catalan izkelgi guzitarako, Mallorka ta Valentzia barruan sarturik, idazkera berdiña bururatu nai zuten. Au ez zan danen gogokoa ta Francesc Matheu jaunak «Ilustración Catalana» aldizkarian aurka egin zion Akademia'ren araupera ez makurtzeko idazleak duten eskubidea adierazi ta aldeztuaz.

Ataka ortatik nola ateratzen joan ziran beste atal batean ikusiko dugu.

ANTONIO M.ª LABAYEN

Parrokietako Eginbearrak

Donosti'ko Obispaduaren aministrazioari buruz, garrantzi aundiko kezka bat, agertu zuten guraso batzuek 1.971-2-7'ko Zeruko Argia'n. «Donostiko Apezpitutegiari erregu bat» izenakin argitaratu zuten lan ortan. Bataioari buruz, erderaz emandako agiria etzuten ontzaz artu. Euskeraz nai zuten. Arrazoi osoakin. Mingarria benetan gertatutakoa. Iduri du, eliz gizonak ez dutela oraindik ontzaz artu Batikanoko Batzar nagusiak agindutakoa.

Aitortu bearra degu, oraindala gutxi arte, parrokietako aministrazioa erderaz bakarrik zegola egiña. Euskerarentzat etzegon tokirik. Utsune aundi bat dago gure artxiboetan. Zoazte itz bat erderaz mintzatzen ez diran errietara, ta gizaldietatik asita gaur arte, paper zarrak danak erderaz ditugu, ia parroki geienetan. Ori lotsa! Lau ta bost gizaldietako artxiboak danak erderaz eta erri oietan ez da sekulan arrotz izkuntzarik erabilli.

Orain dala bi urte Orexara etortzerakoan, nere aurretik zegon apaiza, asiya zan bataio baten berria euskeraz altzatzen. Noizbait asi bearra... Urte batzuek dirala, Tolosa inguruetako apaiz talde batek sortu zituan idatz agiriak euskeraz, sakramentuen berriak eliz liburuetan altxatzeko. Gaiñera eskatzen dizkiguten agiri batzuek ere euskeratuak zituzten; batez ere, bataioa ta ezkontzarena. Apaiz oiei esker, lan aundia aurreratua arkitu nuen, parrokietako eginbearra bear dan bezela eramateko.

Orexa'ko parrokian sartu ezkerotik, bi gauza euskeratu ditut. Lendabizi parrokiko sillua. Orain arteko sillua erderaz zegon, oso itsusia gaiñera eta zion: «Parroquia Santa Cruz de Oreja». Etzeukan euskal kutsurik. Berria euskeraz egin degu eta euskel marrazki batekin apainduta. Edorta Kortadi artilari jatorrak egiña da. Ala dio: «Santa Krutz Eliza, Orexako Parrokia». Beste garrantzi aundiko liburu bat euskeraz idatzita daramakigu. Parrokiko buru bezela, Konsejo Pastoral bat daukagu ta artzen ditugun erabakiak euskeraz jasotzen ditugu. Parrokiaren gaurko bizitza ezagutu naiko dutenak, euskeraz idatzita arkituko dituzte berriak. Ezin degu aztu artxiboak ditugula edestiaren iturri jatorrenak. Gure edestiaren iturri oiek euskeratu bearrak daude.

Uste dut, parrokietako aministrazioa euskeratzea ez dala apaiz talde baten lana, eliz barrutiko ekintza berexi bat baizik. Apaiz talde batek artu dezake bere aldetik erabakiak baiñan ba da garaia Euskalerriko giroa ontzaz artzeko eliz barrutian. Ezin gerana da, sasi tartean, bizi luzaro. Ba dakit asko egin bearra dagola gure parrokietan, euskal giro jatorra sartzeko. Zeinen egokia izango litzaken, eliz atarietan txartel eder batzuen bitartez, mezen orduak, oarrak eta parrokiko biziaren berriak, ekintzen zuzenbideak, dan danak euskeraz idatzita azaltzea. Orrela beste itxura bat izango lukete gure elizak. Bide ortik sartuko litzake gure arteko kutsu jatorra. Xeetasun oiek onak dira, euskal giroa lortzeko.

Ez da arritzekoa, norbaitek galdetzea: «Zer diozu Eliz Barrutiko aministrazioari buruz? Euskal giroaren aldetik, txiro ta aula arkitzen dutela. Gutxinaz bi izkuntzetan eraman bear luketela. Oraindik idatz agiri asko erdera utsean bidalitzen dizkigute. Nere joka bidea beti berdiña izaten da. Erderaz diranean, bete bear ditugun agiriak, euskeraz bidalitzen dizkiet beti erantzunak. Zerbait egin bear dala garbi ikusten du euskaldun jatorrak. Ixillik gelditzea da ezin deguna egin.

Eta Obispaduko «Boletin Oficial»'ari buruz, zer? Mami aldetik oso beartsua ta aula arkitzen dutela. Bi izkuntzetan argitaratu bear lukete. Bizitasun aundiagoa eman bear litzaioke, eliza barrutiko berriak zuzen azaldu, dan dana bi izkuntzetan idatzia. Apaizak ordaintzen degu aldizkari ori. Ona izango litzake danoi, nolakoa izatea nai genduken galdetzea. Neretzat bearrezkoena, euskal zuzendari bat, Obispaduko aldizkari orrentzat.

Garbi azaltzen zaiguna da, danok lan egin dezakegula, gure parrokietako aministrazioak euskal kutsua izan dezan.

LATXAGA

TITO MOZORRORIK GABE (I)

Erri txikien burruka, nazionalidadeen burruka jarraitzen duten guztiak, aspaldi onetan artu dituzten berri ernagarrienak Tito'ren Yugoslabia'tik artu dituzte.

Gauza jakiña da erri menperatuetan, zeiñen nazionalidadeen aldeko ta abertzale azaltzen diran komunistak. Eurak, langille zintzo ta leial agerkaiak ezezik barratzen dituzte abertzale izatearen txartelak ere. Erri menperatuen azkatasun ezurkia marxismo-leninismoaren muiñez sendotzen dala, sarri entzuten degun ixtoria da. Baiñan ain alaiki azaltzen diguten ixtori ori egintzetan (edo errealitateetan) ipintzean «ixtori triste bat» gertatzen da.

Eskeintza oiek zabaltzerakoan ez zan atzean gelditu Tito. Baiñan egintzetara biurtzean naiko komeriak ba-ditu. Marxismoaren profetak egiztatzen ari zaizkigute ez dala berdiña predikatzea eta garia ematea.

Egi au, ordea, guk baiñon lenagoz aitortu zuan Lenin batek. Krouchev kamaradak, URRS'eko P. C. XX Batzar Nagusian, Lenin'ek 1.922 garren urtean idatzi ta 33 urteetan gorderik eukitako guttun onetan ziona, azaldu: «Nere zabarkeriz —zion Lenin'ek— kalte aundiak ekarri dizkiet Errusi'ko langillei. Ez ditutala alegia, langilleen bear-izanak bear ziran indarrez eta aspertzeke zaindu. Asko mintzatzen gera URRS'en ofizialki aitortzen degun autonomiaz; baiñan, egiz, ez dago orrelakorik».

Zeetasunez argitzen du arazoak artu duan bide okerra, eta jarraitzen du: «Orren urrutira iritxi ba'dira gauzak, eta Ordkoinikidze kamaradak gogorkeria erabiltzea mozterik izan ez ba'du (Djerzinsky kamaradak azaltzen ditan bezela), ez da zail asmatzen egiz nolako lokatzean erori geran. Errien autonomien *buruzko gure teori guztiak gezur eta engaiñagarriak dira...»*

Onela-jarraitzen du: «azkatzeko eskubideak» ipintzean, geren buru zuritze platoniko bat egin degu, baiñan egintzetan jartzerakoan edozein papertxotan biurtu degu. Baita alperrikakoa Errusia'n dauden abenda arrotzen onerako aal izateko, errusiar gizona danean esku-sartzeetatik. Errusitar Aundi, «chauvin», eta bide batez, gizaki txar eta gorrotagarria dan errusitar burokrata orrengandik. Kezkik gabe, sobietatutako burokrata batzuek ito egiten zaizkigute esnetan euli baten antzera, Errusi-Aundiaren gizatzarkerian eta «chauvinismo» kaltegarriaren itxasoan».

Eta konponketa arki nairik: «Onetaz iritxi gera atal garrantzitsura: zer da guretzat nazioartekotasuna? Lenago ere nere lanetan idatzi dut nazio-iritzi abstrakto batek ez duala batere indarrik. Erri menperatu eta erri menperatzaille arteko berezitasuna egin bear da; Erri aundi eta beste txiki baten nazionalismoa berezitu».

«Erri txiki auen aurrean, gu, errusitarrok, egintzetarakoan beti izan gaituzute errudun, ixtori zear, zenbatu eziñeko iraiñez. Txarrenik, ez geralo oartzen egundaiño ere gogorkeriak eta jauntxokeriak egiten jarraitzen degula. Nik, Volga zelaietakoa naizen onek, ba-dakit nolako arbuioz mintzatzen geran errusitar ez diraneri buruz: Polako batetzaz, «polack bat»; tartaro bategatik, isekazko «konde», ukraniatarra, «koh-kohl»; georgiarrak eta Kaukaso'ko errietakoak, «kakasinoak» deituaz».

Guri, baiñan, azkenaldi ontako gertakizunak erakutsi digute Lenin'ek azaldutako erakutsi oiek aaztu egiten zaizkiela bere jarraitzaillei. Ungria'n, Polonia'n eta Tcekoeslobakia'n gertatutakoak odolez idatziak gelditu dira komunisten egindako «ixtori triste» batean.

Auek eta besteak gogora arazi dizkigu Tito'k. Yugoslabia'n pean dauden erri txikiekin darabilkian burruka orrek. Baiñan, idazki au luzetxo, urrengorarte lagatzen degu.

UXOLA

AGUR

III URTEA
32 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1972 - EPAILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

NEKEAK NEKE

Gizona gizon izan dan aldi guztietan neke artean bizi izan da. Egia esan, burruka gogorra erabilli dau nekeen aurka bere kondaira guztian. Orretarako izan dira bere asmakizunik geienak: egazkiak, lan-tramakuluak, ibilkiñak... Eta asko lortu dau bere aurrerapen oneikaz. Gaurko gizona lenagokoa baiño gozatsuago bizi da.

Nekeetatik iges egin-gurea gizonarentzat oso unurakorra izan da ba. Eta gaurtik aurrera be orretan gogotsu ekin bearko dogu.

* * *

Baiña nekeak or doguz. Azpiratu ezin izan doguzan nekeak, bear ba'da sekula gizonak azpiratuko ez ditunak.

Gaizoa. Beronek dakarskuzan miñak era askotara arindu ba'doguz be, or agertzen da neke bildurgarri au. Zenbat gaizo-etxe eta zelako aienak mundu zabalean! Eta sarritan, neke guztien laburpena dan eriotzea gaztaroan, beti norberak nai leuken baiño lenago beintzat

Espetxeak. Eta oneitan asko erruduak, gizartean biziteko arriskuko diranak. Baiña zenbat errubakoak be! Zuzentasunaren alde jokatu daben gizonak eta egi-bideetatik ibilli ziralako barruan dagozanak!

Egotaroa. Lurralde otzetan otza, lurralde beroetan beroa, gizonarentzako mingarriak izaten dira. Eta etxeetan berokin onak izan arren, nundik edo andik egotaro txarra eltzen da gizonagana eta bere agin zorrotza sartzen dautso min egiteko.

Gizarte-miñak: Gizonak alkarragaz biziteak ba daukaz bere poztasunak, baiña bai nekeak be: zenbat sendi urduri, zenbat lantegi gorabera gogorretan, zenbat erri zapalduta, zenbat laterri gogorkerietan...!

* * *

Baiña ez ete dau gizonak berak gogoz nekerik billatzen? Baietz uste dot. Zertarako joaten ziran nekezaleak bakarlekuetara? Zertarako barau-aldiak, zer jana izanik?

Eta nekeak norberaren gurariz artzea gauza ederra da sarritan, baita egin bearastun bat be. Kontuz, orregaitiño! Nekeak norberaren gurariz artu gura dituenak ba dau non artu. Aukeratu begiz ondo, neke orreik eta Erriarentzat onurakorrenak artu begiz. Ez nago basamortuko neke-zaleen aurka, baiña bai, gogoz, Erriaren alde nekeak artzeko gertu dagozanen ondoan. Orri begira benetan esan geinke: zoriontsuak nekezaleak, erriko semean izena emongo jake-ta. Zorionekoak Erriagaitik espetxeratuak, erbesteratuak edo zigortuak, Erri barri bat lortuko dabe-ta.

Neke batzuk, ba, berez jatorkuz eta artu bearrekoak dira. Beste batzuk geuk billatuten doguz eta ondo aukeratu ezkero, bearrezkoak dira.

* * *

Gaur gure artean diran nekeak, batez be, iturri bitatik jatorkuz.

Batzuk Erri-lanetatik. Erriaren jakituria, Erriaren nortasuna, Erriaren oiturak eta askatasuna aldeztu bear. Eta ortik nekerik mingarrienak, bear ba'da letorkez, lana bera nekea da, baita ondorenak bere.

Ba dira gure artean gizarte-arazo gogorrak be, ondasunen banaketa zuzena aiztu barik. Eta emen zuzen jokatu gura ba'dogu, laster etorriko jakuz nekeak. Ori egunoro ikusten dogun gauzea da. Baiña zuzentasunaren alde egin bear, nekeak artu arren.

* * *

Bakotxak bere lorra artu daigun ba eta adoretsu eroan, eta adore geiagorik geure barruan aurkitzen ba'dogu, besteai be lagundu dagiegun alkarren lorrak alkarragaz eroanez. Baiña orduan be nekeak neke izango jakuz, baita lortuko dogun gizarte barri onetan be.

AGUR



Poeta Burgesik... Bai?

Olerkaria aitatzea, bearra eta mixeria aitatzea izandu da oraiñartean. Poeta geientsuenak, bide zabalenak izan oi dituzte erruki etxeetara joateko. Iñor izan ba'da burges-kapitalistaren erabatekoz bestaldeko, ori poeta izandu da. Izan ere poetak, eta orregatik poeta, bere buruarentzat baiño geiago begiratu du beste iñorentzat. Poetaren jokabideak biotz barrutik kanporako mugirak izandu dituzte, au da zentrifugoak. Eta bere misxerian ere, besteak goza-arazten ba'ditu, bere naigabe ta guzti, pozik da, ongi ordaindua.

Ez da ez ludiko aberastasun guztiak berarentzat nai lituzkean oietakoa, joeraz kanpotik barrurako bidea maite duana, au da zentripetoa, edo burgeskapitalisten asmoetakoa. Onek egingo lukean bestaldez, iñoiz ez dizu eskatzen interesik, bere biotzaren kapitalaren truke. Onegatik, oso gutxitan mintzatzen da garraltztasunez bere naigabeak eta bizitz-egoera txarrak besteri leporatuaz edo gizarteari errua emanaz. Egitazko poetak, eramankizunez bizitu izandu zaizu, ortarakoxe jaio bai-da poeta, poeta ez bai-da egiten, jaiotzen baizik.

Gure errikide Ramos Azkarate, erri poeta urak erruki-etxean bukatu zituan bere egunak. Orrenbeste utzi zuanak gure Iñauterientzat, euskerarentzat eta erriarentzat, sagi bat ardorekin illobiratu zezatela eskatu zuan bertso batean, ez bai-zuan naikorik edan bizitzan.

Ezagutu nuan geroxeago gure Emeterio Arrese. Beti ain txukun eta soiñez ain ongi jantzitako gizona, bere azkeneko urteetan, oi ez bezela, errian degun traena zarpaillenean, bazter batean bakar-bakarrik txiki bat ardo edaten ikusten nuanean, biotza penaz oiñetaraiño erortzen zitzaidan

Antzekoa edo okerragoa «burges-kapitalista» zan beste poeta baten ixtoria. «Orixe»ri lumak, olerkiak ez zekarkion dirurik, eta dirurik gabe senideak ere aspertzen dira. Egun batez, arrebak bidali zualako etxetik irten zan lotsaturik. Lenengoz arkitu zuanari laurleko bi eskatu zizkion, sello bat erosi eta lagun bati bere zoritxarra jakiñean jarri aal izateko. Onela laga zuan ainbeste maite zuan Orexa erria... eta errukitu zitzaion bere illoba apaizaren teillatupean arkitu zuan aterpe, bere azken egunetarako.

Gaur artekoak «olerkari-burgesak» omen. Oiek gauzak! Gaurkoak poeta-poetak. Ederki eman ere egizko poetak esaten ez dituzten itz garratz, eraman eziñeko esanaldiak dituztenean. Eta, eraman-ezin ontaz ixtoria bera ere idazten ari diranean.

Onela dionean: «Adibidez, Lizardi burjesa zuan, sozial mailari zegokionez, (fabrikako jerente); baina pentsamoldez eta jatorriz nekazaria zuan».

«Lizardi» mixeriz il ez ba'zan ere, gaurko poeta «justizialistak» zuzentza ez ezik errukia ere ez diote opa il danean. Ixtorigille jator bati ez zaizkio aaztutzen gogozkoak ez zaizkion idazleak, zuzentza maite ba'du beñepein. Auxe ikasi bear lukea: Lizardi ez zala burgesa. Idazleak errezena egin bai du: «fabrikako jerente zanez, burjesa». Beraz kapitalista. Jerente izatea sozioa izateari lotua ba'lego bezela... Lizardi'k ez zuan xox bat ere lantokian. Lizardi langille bat zan soillik, mendeko bat, bere balioaz altxa zan enpleatua; bere balioaz eta saiakeraz lan orduz kanpo legegizon egin zan enpleatu bat.

Eta poeta zan, POETA! Eta poeta izaten zekiana. Iñoren izena zikintzen ez zekiana, gutxiago bertso mikatzez. Bere lanaz kanpo, jakintsu bezin umil, itz gozoz, langilleoi eta enpleatuei, eta baserritarrei, eta edoziñi euskera ikastaroak ematera makurtzen zitzaiguna. Sendia aurrera ateratzeko langille aspergabea, eta zenbait poetengandik poeta saiatu ordaindu gabe bat... Ez egungo poeta zentripetoen antzekoa, baizik emaillea.

Onela idazten da ixtoria, Lizardi. Zuzentazunez josia! Nere irakasle izan ziñalarik irten natzaizu zure izen ona eta egiaren alde.

OLAZABAL'TAR XABIER

Erantzun-eskubideari jarraitzen emen azpian datorren eskutitza agertzen dogu, ona:

«AGUR»-eko Zuzendariari urrengo aldizkarian agertzeko erreguz.
Bilbao, 1972 otsaillak 23

Arenaza'tar Josu jaun ori:

Otsaillaren 15-ean, «AGUR» aldizkarian zuk idatzitako «Euskaldun euskalduneri» irakurgaian Kili-Kili aitatzen dozu. Zertarako?

Euskerea dala-ta, alkarri arrika zabiltze batzuk. Kili-Kili «mutikoak», mutikoa izanarren, ez dau orretarako astirik...

Kili-kili baketsua da. Kili-kili'k danak ditu lagun. Mesedez, ez naizu sartu zuen arteko goraberetan. Bidean bakean doanari, itxi bakean joaten.

Agur.
Kili-Kili'k

Oarra: Poztu naz benetan erratuta egon nazela jakitean. Egia da arrika gabiltzala gauza asko diralata. Baiña kontuz mutiko! Erderazko esaerak diñoan lez, «arriek ez daukie bigirik» ta tamala izango litzake zuk bere arrikadaren bat artzea... ta ez litzake gure «harririko» izango.

ARENAZA'K

NIXON'EN IBILLALDIA

Nundik nora dator Arenaza oraingoan? Esango dau irakurleen artean bateon batek, irakurlerik ba'daukagu beintzat! Ez ikeratu lagunak, urrunetik asi naiz baiña etxeruntz natorkizue.

Ara, lengo egun baten, gure aspaldiko adizkide onenetariko baten semea il zan. Bere eleizkizunean, beti jazotzen dan lez, lengo ta betijko lagunak alkar ikusi giñan, zoritxarrez, ez dogu sarri beste erarik izaten-eta; San Anton'en bildu giñan oraingoan, urteak zear ezagutu geranok. Eurok agurtukeran, orain amabost urtetik onako jazoerekin batera, orduko gertakizunak gogoratu jakuzan.

Orain amabost urte amaika poz-aldi, larri-une, Euskalerrietan zearko ibillaldi ta abar izan genduzan. Orduko gazte lagunak ez geuntzan alkarri nolakoa ziran galdetzen; Nerbion erreka ondoko langilleak, txorri-erriko baserritarrak eta Bilbo'ko kaletarrak alkarren lagun giñan; batera genbiltzan. Erbestean jaioak eta erbestekoen seme-alabak tarteko genduzan, beraz, ez giñan gu «odol garbi» zaleak edo razistak. Ori bai, geienok langilleak edo langileen seme-alabak giñan. Ez artu arrokeritzat, baiña orduko gazteeri esker, gure kemen aren bultzakadaz, zenbat gura dantza-talde, abesbatz, aldizkari, euskal kulturazko giro sortu zan. Itxuraz, kaiku ta txapeldun agertzen giñan gazteok, biotzez eta adimenez euskaldunago giñan... Ez gendun orduan proletargo, burges eta olako itzik gure iztegian erabiliten.

Baiña egun bateti bestera, ekaitza sortu zan gure itxas-basterrean, batzuentzat onuragarri dan ekaitza. Orrela izango da bear bada, ez goaz iñoren iritzi-eskubiderik ukatzen, baiña, guk, kaltegarria deritzogu ekaitz orri.

Ordurarte «diru-gintzan» ibillitako gorasoakandik (gure artean ez ebiltzan beintzat) sortutako gazteak izan ziran barriztatzale orren egilleak. Egia esan, orduan ikusi genduzan lenengo berebillak; orduan, euskal itxurabako ule-txima luzeak. Ongarri edo kaltegarri orduan asi ziran etiketa banatzeak, anai arteko ikusi eziñak, zendi arteko burrukak, lagun arteko siñesterik ezak eta abar... baiña guzti ori iritzi unibersalisten izenean; beste gauza askoren artean, izkuntzea bera be nastean sartu euskuen; «batasunaren» izenean bitasuna lenengoz, eta ez dakit nik zenbatkeri orain! Gure oitura ta izakera bereziak alde batera itxita erbestekoenak artu doguz ordezko, ta gora-bera zaratatsuen ondoren gaurko egunetara eldu gara.

Zelan gagoz? Ez noa erantzutera irakurle; begira zure inguruan eta esan egidazu iñoiz lorrin aundiagorik ezagutu dozun; gorrotozko itz geiagorik irakurri dozun; sendi-egoera itunagorik edo siñismen aldatz-beera abiadunagorik...

Teoriz bete dira gure buruak, baiña teoritik ekintzara ez dago alde makala!

Nixon'en ibillaldiari esker Mao'ren Txina ikusi dogu, edo obeto esateko, telebisioari esker, zeozer susmatu dogu. Baiña ango aginterien artean ez dogu gazterik ikusi, ta ikusi doguzenen artean ez ule-txima luzerik, ez itxura nabarmenik. Olakoak, an, kapitalisten artera bialtzeko, lagun barrien artera bialtzeko, gordetzen dabez, exportasiñorako-edo... Bertan, kaleak garbitzeko? Ez dago, ez, aurki, guraso dirudunen berebilletako leioetatik zaratarik egiteko eskubiderik; lan egiteko baiño.

Erakusketa ederra gutzat, baiña euskaldunak baiño itsuagorik ez ete-dagoan nago; bitartean «teledirijidoeri» esker euskalduntasuna gero ta urriago. Bai ete Euskalerri'rik? Geroak erantzuna.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Izkuntzaren Garrantzia

Joan zan urtean marxismoari buruzko itzaldi bat entzuteko aukera izan nuan.

Ez dugu esango gizon ori guretzat ez ezaguna danik. Izkuntzak zer ikusi aundia daukala, ta iztegi berezi baten bitartez marxistak Europa'n egin zuten aurrerapena, argi ta garbi ikusi dugu. Izlariak esan zigun (bein baiño geiagotan gaiñera) alegia, Euskalerrian ere orixe bera egiteko asmoarekin dabiltzala.

Euskal-jakintza ez daukagula aztuta uzterik; bizi-bizirik agertzen zaigula, ta gure erriko etorkizunari begira, indarra ta kemena, euskal-jakintza onek izango duela, zer esanik ez dago. Beraz, euskaldun berriak ugaritzen ari dira, euskal kulturatzaz aski kezkati agertzen dira. Orregatik, euskal-jakintza bereganatu nai dute, baiña euskaldun berri auek, euskaldun zaarrekin ez dute artu-emanik. Zergaitik? Atsekabetu ta goibeltzen gaitu, limurtu ta naastu gaituzten gaitz asko gertatzen bait-zaizkigu. Gazteagaz mintzatzeko irrikaz gaude, naizta agian alperrikakoa izango litzakela pentsa.

Ala ta guztiz, zarrengandik urrun daudela uste duenean, orduantxe ziur-aski urbillen daude. Oien ustez, zarrengandik urruntzeko bide oba bezela (batzuek beintzat), marxismoa aukeratu dute. Gure ustez, geienak, arrotzen seme-alabak dira. Euskal-jakintzak gaur daukan garrantzia ikusita gero, ez pentsa mentatsu ta moda gixa bat besterik danik. Garbi esan beai dugu, ta argi agertu; au da: euskeraren ta euskalerriko etorkizunari begira jarrita, euskal-jakintza zuzentzen duenak, erria, berak eta bere ideolojiak aurrera eramango du; alegia, bere kolkora.

Txekoslobakia'n zer gertatu zan? Izkuntza bitarteko dela gure antz aundia du. Izkuntza maite dute, ta ba-dakite, erriak mugatzeko tresna oberik ez dela ezagutzen. Izkuntzak errikontzientzia esnatu ta suspertzen bait-du. Marxistak arlo onen berri ongi-asko dakite, orregatik, euskal-jakintza ta izkuntza, eak zuzendu naian dabiltza. Gaur-egun, euskalerrian euskal-ikastolak duten indarra, nabari ta nabarmendua dago, ikastoletan sartu nairik dabiltza, munduan ez bait-da soziolojia neutralik.

Usten dut esnatu ta lanean asi bear dugun garaia iritxi zaigula, batez ere gure erria Jainkoaren bidetik zuzendu ta eraman nai ba'dugu. Ikastoletan daukagun egin bear nagusia auxen dugu: Gurasoen eskubideak gorde, aurrei euskal-nortasuna itsatsi, ta Kristau-erlijioa irakatsi. Esku artean lan aunitz eta bikaiñ asko ditugu, baiña bikaiñenetako bat, aurrak ezitzea. Saia gaitezen gure biotzetan daukagun gauzarik onenak aurrari eskeintzen, eta aurrak zanpatu naiean dabiltzanei aurpegia erakusten.

Marxismoak alderdi asko onak dituala eziñ uka. Baiña, beste alderdi aunitz oso txarrak. Diktadura proletarioa aurrean aipatu, ta diktadura militarra bitarteko dela, langilleak eta erriak zapaldu. Marxistak materialismoa onartzen dute, ta sozial-demokratak arlo ontan ez dira bat etortzen, ez dira alkartzen. Marxistentzat «El Capital» bere irakaspide ta burutapidea danez, onena da. Marxista batentzat «Komunista agiria» edo «Lucha de Clases», biderik onena ori dute, au da oien elburu nagusia. Marxista ortodoxoak, ez du onartzen zabalkunderik, alderdipolitikorik, ez alkarterik, ezta azkatasunik ere.

Sozial-demokrata batek bide au ez du gogoko. Alderdi onentzat, Kristau-Aristotelesena da eraketarik onena ta zuzenena, noski.

Rusia'ko imperialismoa, ipar-ameriketakoa baiño latzagoa da. Esate baterako. Biafra, Israel, Kurdoetan eta Sudan'en, orain tanke rusoa'k bai omen dira, jenozidio aundi ta ikaragarria egiten dutelarik. Ekonomiaz at arazo aunitz dira, ta gizonaren zorionerako edo betiko galdumenerako izan ditezkenak gaiñera.

Marxismoari aurka egiteko ez da guda, biderik onena; komunismoa atomikakin ez da suntsitsen, ba-da beste bide egoki bat. Alegia, demokrata denok bat egiñ bear dugu; gure zainbiderik nagusiena zuzentasunaren burrukan, euri aurrea artzea da-ta.

Gizona ez da ekonomia, kristauok ba-dugu beste bide bat, espiritu bizitza, Jainkoa'ren itza. Beraz, ez gaitezen larritu ta izutu, ez dago dana galdua, demokrazia siñismenak ez bait-du poto ta purrut egin ezta gutxiagorik ere. Asi gaitezan gogotsu lanean eta jarrai, zalantzarik gabe egunaren argitzea ikusiko dugu-ta. Orra egia, egi uka-eziña.

OSARTZU

OJANGUREN

Eibar, zarata aundi barik, euskaldun-euskalduna. Eibar, Euskalerria'ren biotza; euskerearen erroa; joskera onaren euslea ta, ika, nausia. Guzurrak eta esanak esan, euskerea gaiñezka, gure denporara arte, ekarri daben gizartea. Eibar be, ba-doa, giro barriko burrustaden aurrean.

Ba-doa, naita oindiño enbor gogorrak izan. Ta izan, ba-dira be, errian nagusi, gaur, etxeko ta auzoko beste landaren artean, or doaz egunetik egunera, gitxitzen. Gure mendietako pagadiak, piñu artean letxe.

Ala ta be, Eibar'en, puntarik-punta, nai Txaltxanean, nai Ibargain edo Loiolanean, ordu larentxo baten ba'zagoz ernai, betiko Eibar a izango dozu inguruan. Ta ez diñot, gerraaurekoa, zarra dalako, beti-betikoa baiño; ori da ba eibartar jatorri ta izate benetakoa.

Baiña, ba-doa. Berezko eutsi bearrak iraun eragin dautsa, bai; baiña berezkoaren gaiñetik, eten-indar bultzalariren bat ba'dabil, egiñak egin arren; eskoletan, egunerokoetan, lanean eta etxe baztarreko ikuskiñetan. Atzetik datorren umea okertzen ba'dabe, betikoa indartsua ta emonkorra izan arren, gitxitzen joan bear, ez dakie ba barriak jatorrizko izatetik jarraitzen, ezin izan izan dabe ikasi-ta.

Ba-doa, gaur arte eutsi dautsenak be ba-doazelako; edo onek doiazelako a be joan egin bear. Ojanguren'tar Indaleki, beste askoren artean, Eibar betikoaren zati bat gendun. Asko izan ba'dira be, eta oindiñok ba'dira be, gure «Kajoitxo» maiteak, ba-eban zeozer ezaugarri: euskeraz iñarduala bere lanean.

Batzuk, idatziz; geienok, berbetan; beste orrek kiroletan edo mailluketan edo etxegintzan, euskaldun euskeradun asko izan ditu Eibar'ek. Idaleki'k euskeraz iñarduan beti bere lanean; itzez, idatziz, egitez, bere argazkiak euskera utsa dira. Euskeraz argazkitutzen ekian eta egian:

Gure mendiak, basarriak, zelaiak, baso eta itxas-ertz; gure erria: ezkontzak, jaunartze aundiak, jaiak, lagunarteak, mitiñak, illeta ta prozeziñoak; gure gizonak: elizakoak, politikalariak, pelotariak, aizkolariak, ostikolariak, bertsolariak; gure ujalak, edurraldiak, gosetiak... suak. Errebaleko bere erakustegi aretara nor ez zan joaten; aixe gendun letra bariko erriko asteroko berbatsua, La Ondarresa'ko leiatilla aretxek ziran.

Berba bariko euskera ori —ori be euskera ederra da-ta— or geratu da gerokoentzat, gaurkook ez dautsagu jaramon aundirik egin-eta.

Izan izan ditu Eibar'ek seme eragingarriak, errian bertan erriaren ezaugarri: Notxe abadea, Ferruel, Don Nizeto, Barrenetxe, Arikitxa, doña Polonia, Badetesia, Kerido, Erzil, Tiopollo, Mateo, Ibargain, Maskuelo, Olabe, Irusta, Toribio ta Indalezio bera... Danok alkartuta ta lengoari jarraitzen eibartasunean, eibartar iraun eben eta iraun eragin euskuen. Ba-doaz joanean, ta euren ondoren gu be bai...

BEIZTEGI'TAR JON

BARZELONA

Aurtengo leen euskel-meza

Aipagarria ta eredugarria, benetan, Barzelona'ko euskeldun-euskeltzaleak Lestonac elizan ain dizdiratsu ospatu zuten URTE-BERRIKO leen EUSKEL-MEZA-NAGUSI, zoragarriro abestua.

Gizon, emakume, zar eta gazte, monja ta praille, ura jendetza ikusgarria, jaunak, jai-egun aundi artan elizatxo artan meza artarako bildu zana!

Bestez-beste, 64 lekaime edo monja izan ziran, antxe arrigarriro zenbatu genduzenak; eta Euskalerri'tik urrun euskeldun lekaime talde aundi au EUSKEL-ELIZKIZUN EDER ARTAN IKUSTEA izan zan, guretzat, biotz-zirarrarik atsegiñenetakoa.

Barzelona'ko ainbat Lekaimetxetan banaturik bizi diran gure arreba maitagarri euskeldunak, ziran, antxe ikus genduzenak. Jainkoa'k ZERUTIK bialiak ziruditen, aurpegi-alai, jantzi-arin eta itxura zerukoi aiekin, ospatuko gendun EUSKEL-ELIZKIZUN URA oraindañokorik aintzaltsuena eta dizdiratsuena gerta-zedin. Eta, ala gertatu zan!

Meza-emaille, Bizkai Bolibar'ko seme jatorra dan Aita Jaio, karmeldarra izan zan; eta Dima'ko seme dan Aita Artaraz irukoiztarra, laguntzaille, astero bertan euskel-meza ematen duan Aita Bitor Zubizarreta, Eskoritza'tarra, Zuzendari zala.

Betiko meza-entzule eta aipaturiko **64 lekaime begiragarri aien artean**, ederki asko abestua izan zan, beti gogoan izango degun **euskel-meza eder ura**, bitartetan GABON-KANTA gozorik adigarriro abestu zutelarik, eztarri txirriñdutsudun lekaime aipagarri aiek: «OI BETLEEM», «BIRGIÑA MAITE», «BELEN'EN SORTU ZAIGU», «GABAREN ERDIAN», «GORA OTS EGIN», «OR, NUN DEGUN», «OR ZAUDE, JESUS», eta abar eta abar, motrikoarra dan Ortega gazteak organu ta auspo-soiñuaz ederki lagundurik.

Igaroriko une atsegintsu artan, EUSKALERRIA'N GENDELA iruditu zitzaigun. Izan ere, guretaiko norbaitek esana da, eta ez da gezurra: «EUSKALERRIA, EZ DAGO GURE LURRALDEAN BAKARRIK; EUSKERA ERABILTZEN DAN LEKU GUZITAN DAGO EUSKALERRIA».

Barzelona'ko EUSKEL-GIRO ONEK, Arrese eta Beitia gure olerkari aundiaren bertso aztu eziñeko au gogorazten dit:

«Euskeldun jaio nintzan,
euskelduna azi;
Euskera utsik, Amak,
eustan irakatsi.
EUSKERA, maite-maite,
zabiltz nigaz, beti...
EUSKERA, il ezkero:
nik ez dot nai, BIZI!»

ZELETA

Pozak eta Kezkak

BEREBILLETAKO TXARTELAK IZAN LEIKEZ ITXURA USTELAK

Pozik ikusten doguz berebilletan euskal-aldizkarien zabalkunerako txartelak, baiña... Aupa Ronnie arein antzekoak izan legikez. Ona emen adibidetzat iru jazopen:

Lengo igandean, Dauphine bat ikusi gendun, ori ta baltzez margotua. Atzeko leioan aldizkari baten txartel bi; erdian «Bizkaia txikia ta polita» ta inguruan jolastoki guztietako etiketak, eta margo guztietako ikurriñak! Ez zan, ez, biotzez euskalduna... edo daltonikoa bear bada.

* * *

Ingande artan bertan, San Mames'era joan giñan, Sabadell-Athletik ostikoketea ikustera. Bidean, AGUR txarteldun berebil bat ikusi gendun, ta lau alkarren ondoan beste txartel aregaz... eta gure buruari esaten geuntzan: «ez gara gu bakarrik Kirol-zaletasunak zorabiatuta bizi garanak» edo obeto esateko «askoren itzak, uts!

* * *

Egunean bertan, goizetik, Portugalete'ko zubi inguruan, Seat 1.500 orreitako barri eder bat. Atzeko leion, aldizkari aren txartela. Barruan oso dotore apaindutako anderea ta bera bezin ondo jantzitako umetxo bi. Urtekeran, guk belarria luzatu, euskerea entzuteko pozez, baiña alperrik! Erdera utsean iñarduen irurak. Ta, zer petsatu guk orduan? Ez garala AGUR'ekoak «kapitalista» bakarrak, ta gitxienez, Jainkoari eskerrak, euskaldunak.

* * *

Or, txartel txiki batek agertzen dituan «kontradiziñoak»; eta esan dogun ori guzurra dala, norbaitek uste ba'dau, agiri-zenbakiak be artu genduzan... ez goaz baiña salatzera, au esatera baiño: itxuraz euskaldun agertu nai dabenak, alegindu beitez izkuntzan ere izaten... bestela folklore utsean gabiltza.

* * *

GOIZ-ARGI'ren Otsailleko zenbakia, 146'gna baitua izan da, oratua. Beraz, ez da zure etxera elduko. Dabillenak iñoiz sostor egiten dau-ta, oraingo onetan gure aldizkari anai orri etorri yako.

PIPER-ZIRI

GAZTEDIA BIZIRIK

TAIZE'KO GAZTEEN KONZILIO-BATZARRA

Nork ez dau azken aldi oneitan Taize'tzaz zerbait entzun? Bai; Taize'ko Gazteen Konzilio Batzarra garrantzi aundiko gertaera izan da mundu guztiko errientzat, eta batez bere mundu guztiko gaztediarentzat.

Taize, Prantzi'ko erri txiki bat da. Erri txiroa aberastasunean, baiña erri aberatsa erlijio gaietan. Taize, azkenengo urteetan, mundu guztiko izparringietako lenengo errietaraiño eldu da; zergaitik?... Asi gaitezen lenagotik.

1939'ko urtean, oraindik ikasle zala Lausana'ko Ikastetxe Negusian, Roger Schutz'ek gazteen alkarte bat irasi edo «fundatzea» gogoandu eban. Alkarte orren eginkizuna au zan: gazteak euren bizitzari jokabide sakonago bat emotea. Baiña urte berean, Agorrillan, guda asi zan eta kristau gazteen talde a, apurka-apurka, banatu egin zan.

Arrezkero, 1942'an, Schutz Taize'ra eldu zan bere lenengo laguntzailleakaz batera. Eta erri ontan, lenengoz, protestanteen talde edo «komunidade» bat sortu zan: TAIZE'KO ANAIEN TALDEA.

Andik aurrerantzean, Taize'ko Anaiak txirotasun utsean bizitzea erabagi eben; baita erriaren lenengo serbitzariak izatea bere. Euren eginkizun guztietan, kristautasunaren kimu barri bat lez agertzen ziran. Otoitza, lana ta ikaskuntzak euren eginbearrak ziran. Euren artean «KRISTAU EGINTZ-TALDEAK» sortu ziran.

Baiña guzti au ez zan naikoa; eta Schutz'ek esan eban: «Gure itxaropena ez dago iñz politetan; eginkizun sakonetan baiño. Zeozer gura dogu egin gaztediaren alde. Taize'ko Anaiak beti siñestu dogu gaztedian, eta orretara goaz». Euren arteko batzarrak ugaritu ziran; euren alkar-izketak illa bete asko iraindu eben. Eta azkenean, au erabagi: MUNDUKO GAZTEDIARI DEI BAT EGITERA URTEAN BEIN BATZAR BAT EUKITEKOTAN. Orduan, Aita Villain'ek esan eban: «Gure aldetik ezin geinkie geiago egin. Orain gaztediak dauka erantzuna. Gaztediak ez ba'dau baietz esaten, gure lan guztia alperrikakoa izango da».

Lenengotan, Gazteen Batzar ori Anaien zorakeri bat zala uste izan zan; eta munduko gaztediak ez ebala erantzungo emondako dei orreri.

Baiña ez zan olan jazo. 1960'ko urtean, Taize siñismen gaztearen uri-burua biurtu zan. An milla ta zazpireun gazte batu ziran, tarte barik ta «diskriminazio» barik: zuriak eta baltzak; aberats ta txiroak; mundu guztiko errietakoak; katoliku ta protestanteak; fededun ta siñesmen bakoak...

Urte artako Pazko-Eguna, benetan zoragarria izan zan. An bildu zan gaztedi jator bat; gaztedi barri bat; gaztedi sintzo bat... ZENTZUNDUN GAZTEDI BAT.

Batzar onen barria mundu guztira eldu zan: irratiz, izparringiz, diskoz... eta abar. Arrezkero, urrengo urteetan, gero ta geiago etorten ziran gazteak Taize'ra. Eta urtean bi edo iru bider batzen ziran. Ainbeste fede-giro ikustean. Max Thurian Anaiak esan eban; «Ez neban uste olako gaztediarik gendula. Taize'ko ateak gazteai itxiten ba'jakez, ez dogu emen zer igiñik». Mundu guztian, Taize'ko barriak alaitasunez artzen ziran; eta Eleizak be poz-pozez onartu eban gertaera ori.

Orduan, Aita Schutz'ek esan eban: «Ainbeste gazte alkartzen geran ezkero; zergaitik ez dogu Gazteen Konzilio bat atonduten?»...

Bururakizun edo «idea» orrek laster aurrera egin eban; eta mundu guztian be txalotua izan zan.

1971'ko Pazko-Eguna ezin astutzekoa izango da Taize'ko kondairan. Anaien etxe aurrean, landa luze ta zabal batean zazpi milla gazte bildu ziran Schutz nagusiaren itzak entzuteko.

Taize'ko erritarrak ezin eben siñestu an ikusten ebena; GAZTEDI BULARTSU BATEN EREDU GARBIA. Aita Roger'ek esan eban: «Eskerrik asko, gaztedi!; eskerrik asko ta aurrera. Bai; zuen ta gure ametsak lortu dira... GAURTIK ASTEN DA TAIZE'KO GAZTEEN KONZILIO-BATZARRA». Eta ango gazteak, «Aleluia» bategaz erantzun eban.

Bai; orain danok dakigu Konzilio bat atondutzea ez dala gauza erreza, baiña ba-dakigu be gazteai esker lortuko dala.

Taize'ko Batzar Nagusi onen gaiak onek izango direz: 1 Eleiz guztien alkartzea, 2 Gazteen eginbearrak kristau bizitzan, 3 Kristo'ren biztuera, festa bat da gizonaren biotzean, 4 Indarkeriaren aurka zelan jokatu.

Eta bukatzeko, emen dozue Schutz'en esaldi bat: «GAZTE BATEN IDEALA, BIZITZAK BER-BERAK BAIÑO GEIAGO BALIO DAU».

EZKAURIATZA'TAR XABIER

Edozein Erritan

Lurrean arrastaka, poliki, poliki, kale barrutik barrena dijoa.

Illunean joan ere goizeko argiaren zai: bat, bi ta iru; bat, bi ta iru; itzalak beti atzetik jarrai diolarik. Bereala karraxi bat entzuten da, eta kalean, bakarrik, serenoa dijoa. Alboan, etxeak errenkada luzean, bata bestearen segidan. Etxe guztien gaiñetik, nabarmen, eleiza arkitzen da, bere dorre luzeakin; kanpaiak ixilik dagoz, geldik lurrera begira zintzillik. Kanpai alaiak, kanpai tristeak.

Gero beste etxe batzuk azaltzen dira, besteen gaiñetik, Udaletxea; Erretorea bizi dana; errietako jauntxoena. Geienak, langilleak bizi diran etxeak dira, tiki eta garestiak. Txabol bat edo beste ere or dago, kalefaziorik gabe, gelik gabe. Or ijitoak deitzen dioten izaki batzuk bizi dira.

Taberna edo ostatuak zakabanaturik, bat, bi... sei, zortzi... berrogei? Kale gusia, dendak, saldoak, beribillak geldirik, kale ertzetan, ixilik, oiu eta laisterkarik gabetanik. Mozkor bat edo beste, kaleak neurtu naiean, bere etxea, bere andrea, bere sendia ezin arkiturik; zakurren karraxia, katuen oiuak; eta an urrutian, oso urrutian; mendiak, itxasoa, illargia, izarrak. Otza. Zugaitzak tente, baratzetan baberrunak, patatak, tipulak, loreak; konserva pote zarrak, ordoiez inguraturik, arri koskorrak, paper eta egur batzuk, ikurriñak... danak lurrean, bizitzik gabe, ixilik.

Ol edo pabrikak, beribillen gordelekuak, diru etxeak, aurrezki kutxak. Gizona, jendea, burruka, lana, izerdia, jornalak; oiturak, asarrea, gerlak, lapurketak, engaiñuak, zapalketak; negarrak, naigabeak, kezkak; gurasoak, andereiñoak, aurrak, mutillak, neskak, biotza. Aizea, iturriak, ibaiak, musika, soiñuak, irrintziak... Erria.

Gure laguna ta gure ametsa, gure estuasuna ta gure poza, gure jokabideen misterioa, gure nortasunezko eginkizuna, gure lanaren ordaiña. Gu gera erria; poetak idatziko duen kanta, umiltasunezko jokareakin, aberastasuna. Praille baten sermoia, monja baten errezoak, sakristauaren kanpai jotzeak, emakumeen errosarioak, estanpak eta liburuak. Gudari baten aberria, ispien jolasketa nastua, nagusiaren aberastasuna, langilleen zigorra, espetxetako leio burnidunak, kirolezko zaletasuna, fedearen sendotasuna, komunisten bigoteak eta astuen arrantzak.

Ori guztia. Ori dana; eta ori baiño milla gauz giago arkitzen dira edozeien erritan.

RAMON ZAPIRAIN

EUSKALERRIKO LANTEGIAK

Aldatu egin bear. Zein aldetatik? Aspaldi irakurri nuen galdera au asteroko baten, eta idatzlan ortan kritika gogorra egiten zuten Euskalerriko industri giroaren inguruan.

Ba-dira euskaldunak —geiegi— argienak eta aberatsenak gerala pentsatzen dutenak. Orrela siñisten jarraitzen ba'degu, ez ote gera euren morroi biurtuko?

Ziadekoak egindako azterketan, Goierri eta Arrasate'ko langintza eta langilleetzaz egiña, onela zion:

Goi maillako lantegietan	Goierri'n	Arrasate'n
Langille karreradunak	0,6	2,0
Langille erdi-maillakoak	1,2	6,3
Langille ofiziodunak.	28,5	15,0
Langille eskulanekoak edo peoiak.	41,2	53,5

Agiri ori irakurrita, barregarri ez, negargarria da benetan, barra-barra entzutea batzuen aoetan, poz-industrializaziñeko maillan daukagula Euskalerriko langintza industriala. Oba litzake egia ba'litz.

Idazlan orretan, industriak iru maillatokoak dirala esanaz jarraitzen zuan, eta Goierra'koa lenengo maillan jartzen du; Arrasate'koa bigarrenean edo inguruan, eta Euskalerri osokoa ez dala bigarran maillara ere eltzen.

Egi garratz onek esan nai du, irugarren maillan gaudela, poz-industrializazioa gure errietako lantegietatik urruti dagoela. Gure etorkizuna onela ikusten ba'degu, ez gera kanpoko langutasunari begira egon bear —ez alperrik— eta begiak zabalik ba'genduzke, gure industriaren etsaiak zertan ari diran konturatuko giñake. Geroago ta kate estuagoekin lotzen dute emengo langintza.

Atzerrian, dirutza aundien bidez, industri aurreratiak sortzen dituzten bitartean, emen gabiltza gu, saski-naskikoeri jokoa egiten, eupadaka alaitasun samurrenean. Noiz arte?

Buru-arin berdiñekoak agertzen gera industri-koperatibakoak ere. Arroputz antzean, gure diru-iturriak bein ere ez dirala agortuko edo pentsaturik. Guk ez degu nai gure lantegiak gure industriak gure poltzikotik indartu eta diru berriz sendotu, koperatibatik kanpo dabiltzan beste lagilleak aurreratutako txanponekin egin bear genukela uste dogu.

Koperatiba barruan gabiltzanok, orain urte batzuk, gutxi, ametsezko bizi mailla zakigu, oraingo bizimodua. Ori bai, orduan guk madarikatzen genduzkan aberatsak baiño erakusgarri ta ostentasio aundiagoakin bizi gera. Areik ziran proletagoaren explotatzailleak, eta gu «zozolistoak».

Bide berriak sortzeko kontzientzia landuaz, ordua degu denok bide galdu eta txantelak alde batera utzita, gauz oberik egiteko.

YOSU'K



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

ALKAR - IZKETAN

Erantzukeria dala-ta

—Lengo eguneko alkar-izketaren azken aldean zeozer geyago esateko asmoa agertu induan, Manu, ta yakin gura ñeukek zer izan zoan.

—Ba auxe, besterik ez: eztabaidakeria, erantzukeritik sortzen dokala.

—Neuk be ezetzik ez ñeukek esango. Ba-kik ba erantzunak erantzuna eskatzen yokala, ta bata besteari erantzunaz, eztabaidea amaibako egiten dok. Nik orreri erantzukeria deituko ñeuskiok.

—Ez yagok txarto esanda, gatx ori, betikoa izan arren, gaur egunean ixurria lez gizarteko mailla guztietan zabaldu dok-eta.

—Ba-kik zergaitik? Gizonak sarritan tximiñoen antzera yokatzen yokalako. Gaur irrati, urrutikuskin ta izparringietan orixe ikusten yabek eta...

—Ori, burua, txapela erabilteko bakarrik darabillenak ez diñoat... baiña beste askok ez yoat uste. Euren burutetik dabiltzazanak ba-dozak eta ugari.

—Ez ik uste doan beste. Ostantzean erantzukeri ori zelan ainbestean zabaldu? Semeak gurasoei, gaur gotzain eta Aita Santuari berari be erantzuteko gertu dozakanak ugari dozak. Askok ez yakiñez, beste batzuk arrokeriz, ba-kik ba, ezyakiñak yakitunagaz eztabaidan ekin ezkero, onen maillara igoten yokala uste izante yok...

—Ori gitxi asko gizonen artean beti gertatu dok. Ez yoat esan gura goikoei erantzutea beti txarto yagoanik. Bear dan itzal, lotsa ta egokitasunez egin ezkero, sarritan onuratsu izaten dok, eta bearrekoa be bai, ikusten diran okerrak zuzentzeko, Baiña gaurko larregikeria be neurritik gaiñezkoa dala uste yoat.

—Ezeik uste izan gaur eguneko gatxa bakarrik danik. Au egiztuteko ara lengo baten irakurri ñoana: Inglaterra'ko ministro izan zan Lord Amory'k 1.964*'gn. senado batzar baten auxe esan yoan: «Aldi nastu baten bizi gara. Gaurko gaztedia euren buruagaz bakarrik arduratzen da. Euren buruaren yaube izatea zer dan be ez dakie. Nagusientzako itxalik ez daukie ta gurasoentzako bez. Gureizat zurtasun eta sentzunekoa dana eurentzat zorakeri ta lelokeri da. Ta neskatillak zorakerietan ez dira gitxiago; or dabiltz nabarmenkeriz burua erakusten, eta emakumetasun gitxi euren itz, egoaera ta soiñekoetan agertzen». Entzule elduak irribarre egin eben gaur egunean yazoten dana ain egoki ta biziro azaltzen ebalako. Baiña arrituago egin ziran ta ixaloka asi, betaurrekoen gaiñetik begiratuta Lord Amory'k au esan eutsoenean: «Ilzok ez dira nireak, Peter eriotxon lekaide batek* 1.264*'gn inguruan idatziak dira».*

—Orrek esan gura yok, gizona, gitxi gora-bera, lengo lepotik buruagaz yabillela.

—Gizona beti bardin xamarra dok eta dan lez yokatu bear.


—Bai, erantzukeri ta beste «keri» guztiak be ortik sortzen dozak. Orixe «keri» ori iñarreagaz garbitzekoa ba'litzok..., baiña gatx ori biziana osatzea baiño gatxago dok eta albait ondoen aurrera egin bear...

—A! ta ez az konturatu, aurrera yarraitzen ba'yoguk gure alkar-izketea be alkar-izketakeri biurtuko dokala.

—Bai gizona, amaitu egin bearko yoguk, ba.

URIGOITIA

Garzia-Ariño Barriz Txapelketan



Pelotari au, Garzia-Ariño'tar Josu, «Garzia-Ariño I», beti da pelotazaleentzat albistea. Bere joko argi ta kementsua dala bide, gorengo maillara igonik eta or luzaroan jarraiturik, aomen ta ospe andia lortu eban esku-pelota saillean. Orain, pelota-tokietatik luzerotxoan alde eginda aurkitzen dan arren, orrein jabetza-alkarteakin izan ebazan eztabaidak zirala-ta, barriz eskuzko txapelketan alde artu nai leukeala erakutsi dabenez batera, izugarrizko iskanbilla pozgarria sortu da pelotazaleen artean.

Ta ori ikusita, ondo izango litzakela uste izan dogu, pelotari onengandik zerbait jakitea, gure irakurle pelotazaleei esan al izateko. Gure asmo au lortu guran, pelotari alai onek Perez Galdos txaidean daben edatetxera zuzendu gara, ta ezagutzen ez ba'gaitu be arpegiz, alai ta txeratsu artu gaitu, gure asmoa zein dan esanaz batera. Gure lenengo itauna au izanda:

—«Tokaio», ezagutzen dozu AGUR gure aldizkari au?

—Bai, sarritan eta pozez irakurtzen dot.

—Poztuten naz, eneban gitxiagorik zugandik itxaroten. Egia da, Josu, laster asiko dan eskuz-eskuzko edo banakako pelota txapelketan eskabidea egin dozula, bear diranei eskatuaz?

—Bai, ta legezkoa zan izan be, ta ontzat artu dabe.

—Beti uste izan dot, banakako pelota jokoa ta batez bere txapelketea, zailla, gogorra dala, ta ainbat txarragoa aldi luzean jokatu barik zagozan ezkero, ta daukazun adiñean gaiñera (37 urte ez da?). Gertatuta zagozala uste dozu txapelketa gogor ortan zure ospe ona gizabidez aldeztuteko?

—Egia da, aspaldian gitxi jokatu dot, eta urteak be, guztieri lez gora joakuz, baiña gertatu naz ta obetuteko asmoagaz aurrerantzean; gogor nago ta kementsu. Urteak ez doaz alperrik, baiña orreik zerbait bere irakatsiten dabe, ta gaztetan baiño burutsuago jokatuten da, ta bardiñean neke gitxiagokin jokatu geien baten beintzat.

—Lenengo maillan jokatuko dozula, ziur dakigu, baiña lenengoetatik asi bearko dozu jokatuten ala lenago geratu ziñan maillatik?

—Ez dakit, zozketa bat egingo dabe, ta zoria izango dan maillatik asita, elduten naizen arte...

—Zenbat txapelketa jokatu dozuz; zenbat bider azken-jokoa, ta zenbat irabazi?

—Orain ez naz ziur gogoratzen, baiña amaika edo amabi txapelketa jokatu dodaz. Sei bider amaia, ta birritan txapela irabazi: Arriaran II ta Azkarate'n aurka jokatuta.

—Nortzuk izan dira, zuretzat, aurkalaririk zaillenak, gogorrenak?

—Ezetariko zalantzarik bage, aipatu dodazan biok: Arriaran II, gizon zindoa berau, ta Azkarate.

—Nortzuk ikusten dozuz oraingoen artean gaitzenak?

—Retegi ta Lajos, baiña gazteen artetik be agertu lei, guk uste izan ez arren, arriskurriren bat, danok «apurtzeko» aiñakoa, gero ikusi bear.

—Ez dago esan bearrik, gu, bizkaitarrak garen aldetik, zuk edo beste bizkaitarren batek txapeldun urtetea nai genduke, baiña zelan aurkintzen zara ta zelango itxaropenez?

—Ondo ta kementsu aurkitzen naz, ta beraz, itxaropentsu, baiña txapelketan ergozpen asko izaten dira, ta ez gitxi zoriaren gora-berak be.

—Au, beintzat, ona izango al-dozu. Azken itaun bat. Zu beti euki zaitugu euskotar garbi ta euskaldun jatortzat, baiña zein giro sumatzen dozu geure-geuretzat daukagun pelotakirol kementsu ontan jokatuten dabenen artean?

—Zeuk esan dozun lez, pelota joko garbi au geurea, euskotarrona da-ta, kirol au jokatuten dogunetatik geien-geienok maite dogu ta berakin gure sorterria. Artalde andietan lez, gurean be ba-da ardi baltzen bat, txindigaitik bakarrik jokatuten dabenetakoren bat, baiña esan dautzudan lez, geienen artean euskotasun bikaiña dago.

—Benetan poztuten naz, Josu, ori zegandik entzutean, ta gure agurrik beroenak AGUR'en bitartez, zuk legez siñistuten dabez pelotari guztieri, ta zintzoena izan dadilla txapeldun... ta, ori, zu izaten ba'zara, ainbat obeto.

ALTUNA'TAR JOSU

Aprobado por el Banco de España n.° 8469/3

EUSKAL HIT PARADE

AGUR MARIA



Agur Maria, Agur Maria
Zer gertatzen da nere errian?
Anaitasuna autsi da eta
Batzuk besteari beti joka.

Agur Maria, Agur Maria
Entzun egizu nere otoitza
Bildu egizu nere erria
Agur Maria lagun nazu.

Urtean asierako norgeiagoak jarraituko ebalakoan gengozan, ta orrela da izan be zati baten, baiña, bat-batean, ona emen ARABA abestaldea lenengo Otsail onetako amabostekoan. Abestia «AMETS» amesetatik itxartuko gaituana. L. P. onen egillea EDIGSA-HG, ta arkibidea HG-27 L.

Oi lez, ara lenengo amarren lerrokadea:

1.—«Amets», Araba taldekoena.
2.—«Orrela Doa Mundua», Enbeita'tar Jon'ena.
3.—«Zure Begiak», Mocedades taldekoena
4.—«Ama Begira Zazu», San Juan Baitistakoena.
5.—«Gora Araba», Araba'koena.
6.—«Ezin Aztu», Luis Mariano zanarena.
7.—«Markesaren Alaba», Urretxindorrak.
8.—«Goizeko Izarra», Biotz-Alai'k abestua
9.—«Itxaropen Bat», zarauztar Oleskariak.
10.—«Ipui Biurria», Xabier Madina'k abestua.

Arabarrak gogor datoz, eta bigarren abestia be bostgarrenean sartu al izan dabe. Ez goaz ezer geiago esaten «Ezin Aztu» orretzaz, olakorik! Bigarren, irugarren eta laugarren geratu diranen artean dabil benetako norgeiagoa, ez ditue, ez, erraz lagako gorengo maillok. Bultzada aundia zarauztarrena, onein «Euzkadi Canta» disko ori geroago ta geiago saltzen doa, ta itxura guztiak mailletan gora etorriko dirala. Xabier Madina'rena, auxe: erosi ta entzun; sarritan gitxien uste danean eskuratzen da pitxi zoragarri bat, ona emen orrenbestekoa.

Ez uste izan baiña, leiaketan beste iñor ez danik, emen dozue salgai Estitxu'ren biribilla. Asi zaite «Agur Maria» ori entzuten eta errezkadan, eten barik entzun bear izango dozuz beste bere guztiak.

Aurrera jarraitu baiño len auxe esan bear: Ba-da gure euskal-doiñuketan uñin izan daiken eresgintzarik gorenengoa, eta gure abestietan... Ez ete ziñan izan lengo igandean Biotz-Alai'koeri entzuten: Ariño, Solaun... danok ez goaz aipatzen, ezin. A zan abestea ta arek ziran abestiak. *Alostorrean*, ezagutzen ez gendun doiñuan; *Neguko Txilliñak*, gozoa; *Illunabarra*, indartsua, Baiña, goiz orretan a zan *Goizeko Izarra* ta batez bere *Guda Zitala*. Erdian, tartean, Sarobe'tar Luis Anjel durangoar gaztea, bere auspoari txingarrak ateraten. Eskuak erreminduta etxeratu gintzazan.

Ta amaitzeko, emen AMETS orren itzak:

AMETS, bizitz amets.
gazte amets, beti amets,
Bildur gabe gure ametsa
Eta danok illun
ogi billa, bake billa.

Bizitzak min ematen du,
Negarrez jaio giñan.
Maitasun gabe gabiltza,
Baiña guk, berriz, amets...

Gizonak zerbait bear du
bizi dan mundu ontan.
Gezurrak miñ ematen du,
Baiña guk, berriz, amets...

LOURDES TA XABIER



Mahalia Jackson

Oraintsu il barri dan Mahalia Jackson emakume abeslari baltza, bere berezko abesti doai ta bere errimaitasun eredubidez datorkit gogora, ta, bere nortasun biozkor ta ausartaren zeaztasun batzuk azaldu nai dodaz, bere aintzazko gomuta eraginkor, ta, bizigarri, bide eredugarria izan dedin...

Abeslari apal ta ospetsu au, New Orleans'en iaio zan 1.911'gko. Urrillaren 26'an, ta egunokaz, igaro dan Urtarrillean betikoratu da, biotzeko miñak erasota Chicago'ko gexotegi batean 60 urtegaz. Mundu zabalean oso aupatua ta ezaguna zan emakume baltz onen izena; batez be, Mississipi baltzeko lurraldean. Emakume zabal, lodikotea, alai ta siñistetsua; arpegi irribarretsu ta abots zoli ta ederraren iabe zanak, bere bizitza osoan salmoak oguztu ta, ebanjelio kutzuzko abesti sentikorrak abestuz, gogoz aintzaldu ta, goiestu eban Iaungoikoaren izena ta, baita bere erri baltzaren oiñazeak ta askatasun egarria.

Beraz, gorengo abeslari ta aldezle zintzo bat galdu dau Ipar-Ameriketa baltzak. Biblia zale purrukatua izanik, abestu baiño len, beti salmoren bat oguzten eban. Ortik bere giartasun ta indarra, bere biotzaren aberastasuna. Mahalia Jackson aspaldiko gizaldietan Amerika baltzak emon, sortu izan daben alabarik adoretsu ta eredugarrienetako bat zala autortu bear dogu. Iopu edo esklabo baten lobea zan. Bere aita be, New Orleans'ko alorretan, algodoi biltzaille txiro bat izan zan ta, etxera zerbait geiago eroateko, orduz kanpora, baltz auzoko bizartegi batean lanpidetua zebillen.

Zortzi urteko ume punta bat zala, Mahalia or bakarrik, umezurtz gelditu zan ta bere izeko baten etxera abiatu zan. «Aunt Duke» bere izekoa oso Iaungoikotia, elizkorra zan, baptista uzkurtzakoa ta, beraz, salmo ta Biblia idazti zale zintzoa. Abesti zaletasuna Mahalia'ri elizako koru edo abestaldean abestuz sortu iakon ta or-emen, adizkideen artean entzuten ebazan diska ta eresaldietatik. Baiña ezak beartuta ikastolara ioatea itzi eban, ta, zotz batzuk irabazteko ume iaboten, neskame, ta onelako lanetan ibilli zan.

Baiña bere izekoaz siñismen bero batean barrenduta bizi ziran ta, siñismen oni esker, eruapenez artzen ebezen bizitzako estuasun, miseri ta ezbearrak, geroaren pozera, Iainko altsuaren besapean gogoa sendatuz. Ebanjelioan arkitzen eben ianari sendo onek suspertuta, itxaropenezko bideetan murgiltzen ziran bai, garai artako ioputiar askoren antzera, miseri gorria arinduz...

Talde batzuk ostera, siñismenaren babes, eusgarri barik, «Jazz» ta «Blue» ekaz mozkortzen ziran ta, algodoi arteko lanbide tristean ez eben etorririk, bizibiderik ikusten ta, onela, illunpe makur ta negargarrienean, adore barik ezeztuta, minberatsu, ondaturik arkitzen ziran, ezeren poz, itxaropen barik. Biblia idaztiak ostera, geroaren poza, bidea argitzen, zabaltzen eban... Onela, ezi ta asi zan Mahalia, ta egun baten sendo, bulartsu bideratu zan bere abots arrigarriaren lilluratasun zoragarriz. Musikarik ikasi ez ebanak bere abots sakon ta atsegiñez txalopetu ebazan mundu zabaleko entzulerik geienak, ta, bere abeskera ta abotsaren bidez aberastu zan. Milloika diskak saldu ta konta eziñalako eresaldiak emon ebazan lurbirako uri garrantzitsuenetan. Azken aldikoak, Europa ta India'n. Esku zabala zan; irabaziaren erdia musika ikastoletarako ta abar, banatzen eban. Ta, bere gogo, biotz ona erakutsiz, espetxerik espetxe, ta, umezurztegiak, ta zentztegiak, noiznai ikertuz, aspertu barik ibilli zan, beti, minberatuen, ezeukien alde... Kabaret eta beste lizun usaiko aretoetan dirua barra-barra irabazteko aukera izan eban arren, beti ukatu ebazan onelako irabazpideak. Gazte denporan, entzule baltzen artean emakume sutsu, adoretsu onek, zoramenezko txaloak iazotzen ebazan, iñundiko irrintzi ta, aupada artean. New York'ko «Carnegie Hall» ta, Washintong'go «Constitution Hall»eko ateak Mahalia'ntzako zabaldu ziran (Marian Anderson'i ukatu eutsoezenak).

Coretta King emakumeak esana: «Zuzentasunaren, azkatasunaren, anaitasunaren aldezlerik aundienetako bat galdu dogu».

Biotz aberatseko emakume au, Mahalia Jackson sugar bizi bat zan, iagiten zanean bere arrazaren alde. Martin Luter King zanak eratutako erri-eskubideen aldezko agerpenetan aurrerengo agertzen zan. Mahalia'k ez eban bururik gordetzen 1.963'gko martxa edo agerkunde nagusian olaxe etorren, ta Lincoln gizairudiaren oiñetara eldu ziranean, Mahalia'k negar-malkoz, abots sendoz, onela abestu eban:

Barre ta ixekaz
alboratua izan naiz,
etxeratzen naizenean
esango dautsat Iainkoari
txarto ibilli ninduzuen
denporaren barri.

Mahalia'k, maitasunezko altxor, ondasun bizi erdugarri bat itzi dautso bere erriari baiña, egia esan, gaur eguneko gizaldi barriak ez dautso erantzun aundirik emoten. Adiñekoak, urtetsuak ordea gogoan dabe ta izango be bai, bizi diran arte, King martiriaz batera igarotako ordu latz, aintzagarriak...

MUNIATEGI'TAR SABIN

1.000 abots-euskalerri'ko 20 abesbatz ospetsu

USANDIZAGA disko-etxea
Getaria, 21 - bian
Urrutizkiña 41 32 82
DONOSTI

EUSKAL ABESBATZ ANTOLOJIA

USANDIZAGA

Lau disko aundi ots jatorrean.

Aita DONOSTI

Adio, ene mattia - Agur Itziarko - Aingiruen erregina - Aitak eta amak - Ama - Beti penetan - Binbili, bonbolo - Ene maitea - Euskal Irukoitz - Iru txito - Txorittua, nurat hua? - Una planeta - Urtxindorraren eriotza - Urzo lüma.

GURIDI

Akerra ikusi degu - Aldapeko - Amatxo - Anton Aizkorri - Ator, mutil - Boga, boga - Goiko mendiyan - Intza begietan - Iru errege - Maitasun atsekabea - Matsaren orpotik - Ni ez naiz zomorrua - San Juan Anteportaletaña - Txeru.

ZUBIZARRETA IRUARRIZAGA

Agur, ene mattia - Ama, begira zazu - Amar dirare mandamenduak - Bizi naiz munduan - Erriko festa - Txitxardiñetan - Zikiro beltza.

Argizaria zelütik - Bijotz galduba - Entzun adikor deja - Edurrez dago mendija - Itsasoan - Maritxu, nora zuaz? - Zeure altzuan.

BEMACHA Aita OLAZABAL

Gizonak ez dau bear - Iturin'go arotza - Kreatura damnatua - Legorik lego - Neure maitena - Orra or goiko - Urrundik.

Aldapeko - Bonbolontena - Done Bartolometan - Eguntto batez - Iruten ari nuzu - Mendigoizaleak - Orra, Mari Domingi - Xorietan buruzagi.

GIZONA POLITIKAN

Politika, gizonak egiten dau (ar edo emen, bardin yat) bakarrik: ez abereak ez piztiak. Ustegoak gizonak sortzen dauz. Erriak gizonak jasoten dauz; urigintza, gizartegintza ta abar... gizonaren lanak dira. Politikan zear ba'gabiltz, ezelan be ezin dogu itxi gizon ori alde batera, bera dagolako erdian, eta bera dalako dana.

Ikaste asko egin dira gizonaren inguruan eta gizonatzaz: alan eta guzti be, ez dakigu, osorik beintzat, zer dan bera, onen sakontasuna. Bere neurriak artzeko ez dogu almenik, eta nire ustez, iñoiz be ez dogu izango.

Gizona da zuzentzaille ta zapaltzaille, agintari ta morroi. Gizona da ba, ikusi bear doguna; bere sorkundeko lenen egunetatik gaur arte; munduko lenengo gizartetik, naita txikiena izan, gaurko aundienetaraiño.

«Agintariak, ta aginte guztiak, alakoak edo onakoak izango dira, baiña ezin iñoiz ukatu gizona. Bai gaiñean eta bai azpian: onek ontzat izango dabe, arek txartzat, eta geienak ez dabe izango ezelako ardurarik errien arazoetan» diño Bouthoul'ek (Ikusi «Sociologie de la Politique», Gaston Bouthoul, Presses Universitaires de France, 1.965'gn. 49'gn. ingian).

Gaur ez da ikusten gizona lenago lez: gizonaren irudi zeatza gura dogu, ta ez zeatzeza, XVIII gizaldiko Jakintzargi edo Ilustrazioak agertzen euskun lez.

Gizona, alkar artean, gizarte politika egitura baten bidez eta egitura barruan ari da. Origaitik, gizarte egiturak sarritan, geienetan, gizona lotu egiten dabe, arazo askotan beintzat, eta naita betiko metafisikak gizonaren izakera aldatu eziñekoa dala esan, kondaira guztian, gizona garai bakoitzeko eretara moldatu egin da. Au dala-ta ez dabe bardin jokatzen, esate baterako, fasistak eta komunistak. Guda aldian eta bakean, siñistu eziñezko ezbardintasuna agertzen da.

Gizonaren izatea, era askotara azaldu dauskue: azalpen batzuk, labur izanda be, emen jarriko doguz.

Lenengo azalkizuna: «GIZONA BEREZ ONA DA», au da, «Gizonaren baikortasuna»: Teolojian edo Jainko iztian, Pelagio'k zaindu ta eutsi eutson ustego oneri.

Orduan, gizona berez ona ba'da, zelan aitzen dira gizarteko zoritxarrak? Rousseau'k diñonez, erri lantzeak eta gizarte bizitzak (bakoitzaren jabetasunak, Estaduak) gizona usteldu ta zoratu-arazo baiño ez dabe egiten. Origaitik geure jatorrizko izatasunera biurtu bear dogu, gizonaren berezko baikortasunera. Orretara azaldu euskun Rousseau'k bere Dijon'go Akademiak saritutako «Gogoeta'n».

Anarkistak be, gizonaren baikortasunari eusten dautse. Au dala-ta, bakoitzaren jabetasuna, Estadua ta Erlijioa ukatu bear dira; oneik, anarkisten ustez, gizonaren aurrerakuntzea ta gizontasuna bera be, zapaldu ta usteldu egiten ditue.

Liberalak (Bizkaian «baltzak» deitzen dautsegu onei, ta beste leku batzuetan «giriak») ez dabe guztiz onartzen ustego au. Zati batzuk bai, baiña kontu aundiagaz: «Estadua gaitz bat da... baiña bearrezkoa» diñoe. Bakoitzaren jabetasuna, ostera, zaindu egiten dabe. Eta Estadua, onein ustez, alik gitxien sartu bear dau gizarteko arazoetan.

XVI, XVII eta XVIII gizaldiko mixiolariak be laguntza aundi bat emon eben gizonaren berezko ontasuna ontzat artzeko. XVIII gizaldian sortua da «amerikako indio ona» be, ta abar...

Bigarren azalkizuna: «GIZONA BEREZ GAIZTOA DA», au da GIZONAREN ETSIPENA: Onela uste eben kalvinotarrak. Au dala-ta, gizona berez txarra ba'da, kontu aundia euki bear da beragaz, eta alegiñak alegin egin ona biurtzeko. Askatasuna onentzat arrisku aundi bat baiño ez da. Estadu gogor bat bear da gizona zaintzeko. Ta Estadu jauntxoak onela sortuta geratzen dira. Onek izan ziran, politika aldean, Maquiavelo ta Hobbes'en ustegoak be, ta ustego oneitatik estadu arrutetara pausu bat baiño ez dago.

Irugarren azalkizuna: «GIZONA ILTZERAKO BIDEETAN DABIL, GALBIDEETAN DABIL». Ustego au kristau teologiak zaindu dau beti (munduan Adan eta Eba Jainkoak ipiñi ta gero, oben bategaitik, betiko jausi ziran, «jatorrizko obena», dindilizka jarri euskuen, eta Kristo'k mundura etorri bear izan eban, gizonarentzat zeruko ateak edegiteko, kurutzean illik).

Oneintzat, gizona, berez, ez da ona ez gaiztoa: Bakarrik, «iltzerako bideetan dabil».

Ovidio'k be, onela ikusi eban: gizonak gauza onak ditu bakarrik ontzat, baiña beti, txar eta gaiztoak besarkatzen ditu.

Gizaldi onen lenengo urteetan, M. Hauriou prantziko idazleak be oso ondo ikasi ta ikusi eban ustego au.

Sozialistentzat, bide luze ta latz bat ibilli ta gero lortutako egoera bat da.

Gizonaren egoerako edo izakerako azalkizun onek beti gogoan euki bear doguz, osterantzean, askotan, ezin aitu izango doguz, gizon batzuen izakerak eta besteen egikerak.

GARATEA

Txung-Kuo Edo T'xina

ALDAKETEA.—Txinak aldaketa aundia izan dau azkeneko urteetan. Bardintsu agertzen dira gaurko Txina'n personak eta gauzak. Auxe oartu dabe Europa'tik-eta joan izan diran guztiak. Goizean lanera bidean eta illuntzean etxeratzean ez da ikusten jantzi ta kolore berezirik gizonezkoetan eta andrazkoetan. Lan-jantziak bardiñak dira guztientzat: prakak eta txamarra urdiña ta arkondara zuria. Kolore guztietako jantziak erabiltzen ziran antziña baten Txina'n.

ARPEGI BARRIA.—Arpegi barria dau gaur Txina'k danean. Gobernu batua eukan Kristo baiño 770 urte aurretik. Iparraldeko erri basatiak Txina'ren jabe egin ziran 960'gnean. eta aurrerapen aundia egin eban batez be Europa'n sedia salduaz. Guda izan eban Inglaterra'gaz 1842'gnean. Galdu egin eban. Gaurko Txina'k kultura-barriztean dau bere oiñarria. Emakumearen askatasuna sortu zan eta sendi-bizitzak be bide barria artu eban.

Kaiserra jainko zan Txina'n. 1.911'gn. urtean amaitu zan bere almena. Republikea sortu zan urte atan. Atzerritarren aginpidearen aurka jagi ziran txinatar danak 1919'gnean Chang Kai-Chek buru zala. Formosa'n dago gaur au Txina-barruan agintzen dabenak jaurtita. 1.949'gn. urtean zan au.

KOMUNISMOA JABE.—Mao Tse Tung'ek gobernu komunistea jarri eban. Jazoera aundiak izan dira arrezkero Txina'n: eztabaidak Rusia'gaz; ille bitako guda India'gaz; bonba atomika sorteza ta jaurtitzea; kulturari buruzko matxinada; ONU'n sartzea ta abar. Barruan be izan dira gora-berak agintarien artean eta oraindik ez da egin bake osoa euren artean. 800 milloa biztanle ditu Txina'k eta gobernuak etsaiak ba'ditu be, geienak gobernuaz batera dagoz. Askok eta askok lan be ba-dagie gobernuaren alde; alan be ez da askatasun aundirik, batez be jakitunentzat.

ZABALERA.—Lurrez aundiena da Rusia ta Kanada'ren urrengo. Iparramerika baiño aundiagoa 9.597.000 kilometro lauki daukoz, Gure Euskalerria tantatxo bat bere ondoan. Nekazaritza ugaria dau, alan be lur-barnean dauko bere aberastasunik aundiena, ikatz, burdin eta kobre-meatzak. Garia be ugari dago Ibai Bellegian. Itxasertzetan portu garrantzitsuak daukoz. Mundu guztiko itxasontzi aundiak eltzen dira orreitara.

Txina pobrea da oraindik, baiña erria oso langillea. Igandean bakarrik dagi atseden erriak. Gaurko Gobernuaren egite aundiak ospatzeko ta gogoratzeko diranak bakarrik dira jai-egun. Txina'k ez dauko turismorik; ezin euki leike ez baitdaukoz ortarako bear diran bide egokiak. Egazkiña be gitxi zabaldu da. Etxeetan ez dago telebisiñorik; batzar-tokietan eta erri-etxeetan bakarrik. Ez dago tanerbarik, ez zinerik, ez kafetxerik.

Txina misterioz beterik dago, europarrentzat. Atzoko Txina ta gaurkoa nok ezagutu? Zintzoki zaindu ditu bere oiturak, bere izatea.

TXINA'KO ARRIGARRIAK

Arresi aundia.—*Munduko gauzarik arrigarrienetarikua. Bi milla urte ditu. Ez da itzakin esateko, begiekin ikustekoa baiño. Kristo munduratu baiño 214 urte lenago bukatu zan. 300 milla gizonek egin eben lan, arresi ontan, 10 urtean.*

MING KAISERREN ILLOBIAK.—Txinak oroigaillu asko ta ederrak daukoz. Ming Kaiserrak jasotakoa noski bikaiñena. Illobiok Ejito'ko Faraoneank dakarskuez gogora. Ming Kaiser-sendiak 1.368'gnetik 1.644'gnerarte agindu eban Txina'n. 16 izan ziran eta euretarik iru Pekin'en bizi izan ziran.

TXINA'REN ETORKIZUNA.—Txina lo-samar egon da, baiña esnatu da. Bere izatearen eta indar-almenaren kilikilia oartu dau. Txiroa dan arren, aberastasun asko ta aundiak daukoz. Uri aundiak be bai. Shangai aundiena. Bear ba'da aundiena Tokio'gaz batera. New York baiño aundiegoa da. 12 millon biztanle daukoz. Zer izango da Txina aurrerantzean? Ze etorkizun ete dauko? Onu'n sartzea lortu ta Iparramerika'gaz, Japon'egaz, Rusia'gaz eta nazio indartsu guztiekin ar-emona euki gura dau. Formosa beragandu gura dau lenbailen. Zer erantzungo ete dau Onu'ak? Argi aundia egingo dau Nixon'en bertaratzeak. Jazoera au ateetan da; ta itzultzean jakingo diranak, garrantzitsuak benetan.

TXANTON

IKUSI TA IKASI

Ingalandarrak «diplomazi» gaietan, trebetasun eta zurtasun aundikoak dirala, eziñ uka. Erri-arazo ta politikan ospe aundia dutelarik, munduan iaioen bezela jotzen ditugu. Gu, onela zala ustez, bizi giñan beintzat. Politikari buruz elduak zeudela, ta egia esateko, erri-arazoetan eurentzat izkutakorik ez egola.

Baiña trebetasun eta zurtasun gaillurrera nola iritxi dira? Zer bide urratu dituzte? Nortasun ori nolaz lortu dute? Ba-da erderaz esaera bat: «Galduaz ikasten da» auek ere kankarreko galantak artuak dira. India etabar. India bere atzaparretan eta ankapean edukitzeagatik, zer etzuzten egin! Orregatikan, «diplomazi» buruz maixuak diranez, ipar Irlanda'ko arazo larri ta estua ikusirik, zuzenki ta maitasunagaz, lur ortako gora-beerak konpondu bear zituzten.

Baiña, tamalez gauzak alderantziz joan dira, arazoa garraztu ta ingalandarrak gogorkeriz erantzun. Ingalandarren jokabide onek, naigabe ta atsekabe aundi ta sakona ematen digu, ezin diteke naigabe samiñagorik izan.

Normandarrak, Irlanda 1.170'garren urtean indarrez-artu zutenetik, Irlandar abertzaleak jo-ta-ke azkatasuna eskuratzeagatik, burruka bizian-bizi oi izan dira. Bestalde azkatasuna iristeko burrukatu bearra. Beraz, guztiz berotu rik bere azkatasun egarria asetu nairik ibilli ziran. Ba-zekiten ongi-aski lo dagonak mee jaten duela.

Alaxen ingelesdar maltzurrak, ego-aldeko Irlanda utzi bearra izan zuten, irlandarrak bere saria jaso zuten. Ogetamabi kondadutik; ogetasei askatuaz beren elburua iritxi zuten, alegia, Eire laterri azkea lortzea. Beste sei kondadu, ipar-sortaldean aurkitzen dan (Ulster), ementxen ingalandarrekin uztartuak gelditu ziran.

1.949'garren urtean aginbidez eta arauz; Eire'ko Republika, adierazi ta autorturik 1.955'garren urtean O. N. U.'en barneratu ta sartu zan. Irlanda'k azkatasuna iritxi zuanetik, jaurlaritza ta jaurpidea, Dublin'en zuztartu ta tinkotua dago.

Asieratik, ipar-aldeko Irlanda ta ego-aldekoa, oso ezberdiñak ditugu, egoaldean nekazaritza saillak dauka tokirik ezaugarrien eta nagusiena. Ipar-aldean ez da berdin gertatzen. Olagintza ta industri guztia edo geien bat, batez ere lantegiz ornitua dago Beste arazoetan antzo, sail ontan ere ipar ego-aldeak alkartzea guztien onerako izango lukete.

Ingalandarrak «Lucha de Clases» sendotu ta gogortu dute, batez ere errixean, katoliko erlijiokoak geienak beartsuak dira. Eta zanpatzaille ta ertsariak «protestanteak», aberatsak dira. Berarizko, au da: «espezializatu» gabeko lanak, katoliko-abertzaleentzat alderatu dituzte.

Egoera ta aogaitz au ikusirik, ibilkuntz-emeki ta paketsu bat aunditzen, geitzen joan da. Errikide guztienzat eskibide berdiñak eskatuaz. Etsairik aundiena, Unionista alderdi protestantea izan zuten, baiña Ulster'en pazientziak bere neurria duan lurra da. Orregatik egoera paketsua txukatu ta bukaturik, indarrez eta gogorkeriz zuzengabekeriaren aurka irtenak dira.

Kontuak-kontu ziur esan genezakena, Irlanda'n azkatasunagatik burrukatzen diranak abertzaletasunean batuta dagozela, ta ez nolani ere! Beste erri batzuk ikisten ditugu azkatasunagatik, alegia azke izateagatik, burruka bizian ari dirala, baiña ezin iritxi dute, ez bait-daude batuta, batasunaren zarata aundiegia darabilte.

Erri oientzako, Irlanda ez da eredu makala, ikasiko al dute, irakaslearen aitzikirik ez dute-ta. Ortxe noski erri oien elburua, abertzaleen batasunean; Erri oiek bere osotasunean irladarren ikasbidea bereganatzen duten egunean, orduantxe esan al izango dugu azkatasuna iritxi dutela, keri gabeko batasunean.

Erri oiek oartu bear dute beren erriak abenda bat duela, izkuntza berezi baten jabe dirala, edesti bat ere ba-duela, ta eskuartean dituzten oiek denak, berebereak dituztela.

Irlanda'k azkatasun ori lortzeko alegiñak egin ditu —ta egingo du— ortarako bere eskubidea argi ta nabari bait-dute.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

ONA

ta

RAM

EZNEAK

ZUK

ONARTZEKOAK

DITUZU

ARRAINTZALE ARAZOAK

KONTUZ EBIL ZAITEZTE

Urteroko zer esanak sortzen dira kantauri itxas ontan. Arazo minkoak, bere zigor ta guzi. Egunontan iru itxas ontzi katez lotu dituzte Baiona'ko kaian. Irukoi oietako bat Getari'ko «San Prudentzio» ontzia izan da.

Izen buruz esaten det, «Kontu ebil zaitezte». Arraintzaleak jakiñen gañian daudela ere, ongi dakizkigun albisteak dira. Ala ta guziaz ere, urteroko gora-berak izanik, berak ematen dizkioten buruko min aundian arraintzaliei ta ondorengo kalteak, ikaragarriak dira.

Aurten antxotan igaz baiño illabete lenago asiak dira. Gaur illak 12 dituanez ta Otsailla gora, arrapatu dute zerbait, ta albisteak ditugunez aurten ere kostera on xamarra izango dutelakoan daude, idazlan au agertzerako, ziur nago ni, kaialdeak arrai usai ta ezkamez beteak egongo dirala. Ala obe.

Gaurko zer esan ontan ordea, ez nuke idatzi nai arrai konturik, baizik berak eragintzen dituan arazoak. Gorago diotan bezela, iru ontzi oien kalteak, ta beragatik esan nai nuken berri eman nai dizut, zuri irakurle.

Prantsi'ko itxazai oiek diotenez, ango uretan ARGI gabe zebillelako, arrapatu zuela «San Prudentzio» ontzia. Itxasoko legean, erderaz esaten dan bezela «Derecho Internacional del Mar... ta abar», ezin leike itxasoan ebilli argi gabe, orrek eragintzen dualako ontziakin alkar jo ta urperatzea. Baiñon, nik galdetzen diot itxazai ortako kapitanari au... Zuek nola zebiltzen argi gabe? Alkar ia jo zutela ta, orrek esan nai du, bi ontziak berdin zebiltzela, au da; ARGI GABE. Itxazaia gudaontzia izanik ta bere urak zaitzen dagona, nola leike bera ere argi gabe ebiltea...?

Kontu egin bear degu ere, arraintzako itxas ontziak, antxuak arrapatzeko, ARGI gabe ebilli bear dutela, argiak ez diotelako antxua ongi ikusten uzten. Arrigarriagoa da, zaitzaille bat gabe ebiltzea, ta ez arraintzan dabillena. Esan geinke, biak dituztela erruak eta ez batek.

Olako gertaerak sortuko dira bein baiño geiagotan aurten ere igazko urtean bezela. Ontan ziur gaude. Baita ere, dakigun egi mardula da, alegia, gure itxas arraintzale ontziak ez daukatela berak zaintzalerik. Egi au nik baiñon obetoago jakingo dute berak.

Atun kostera bukatu zala illak dira, igazko kostera ona izanik. Baiña, bien bitarteko utsunea luzeegi joaten zaiote arraintzaleeri. Zer gertatzen zaiote gero? Irten itxasora ta alegiñak egin antxua kaiara ekartzen, ortako ezbearrak igaroaz. Ez bear oietako bat ori da, besteren uretan antxua egotea, ta uste gabean askotan, barruregi besteren uretan sartzea ontziak.

Kontu egin dezagun orain, bi ontzi oiek alkar jo ba'ziran zer gertatuko zan? Askotan egon oi naiz izketan patrio oiekin kaialdian. Berak diotenez, bein sartu ezkero antxuak dauden uretara, ontzi guziak ebiltzen dirala argirik gabe batera ta bestera. Arrigarria alkar jo gabe nola dabiltzan... gero beren Lupa edo Radar oiekin ikusi bezin laister antxua edo beste arraiak, bota sareak. Orrek arraintzaleen artean esan nai du ETXARA. Oraingo sareak ez dira antziña bezelakoak, askoz luzeagoak baizik. Luzetasun orrek leku asko artuaz, berealan pizten dituzte argiak, bat gorria adieraziaz sarea botata dagoala. Beste ontziak orduan ba-dakite, arraia ikusi, ta bota duala sarea, ta inguratzen dira, askotan sare ori beren elizakin artuaz ta zearo autsi, ta galduazi arraintza. Olako gertaerak ugari ikusten dituzte. Arrai-gose orrek ematen dizkioten lanak dira oiek ta uste izaten dute orren nabarmen ebiltzen ez ba'dira, kaiara arrai gabe elduko dirala, ta besteak arraiaki. Orra or patroi askoren buruko miñak, ta gero ondoren gertatzen diran negarrak.

Orain esan dezagun ze dirutzak ezarri dizkioten iru ontzi oieri zigortzat. Guzira: 5.471.136. Au da, bost milloi, lauren eta irirogeta amaika milla ta eun ta ogeita amasei pezeta.

Zer uste dute prantzesak, emengo arraintzaleak aberatsak dirala?. Dirutza ori ordaintzeko ez dakit ontzi nagusi oiek nola moldatuko diran. Ontzi oiek, dauzkaten urteekin, gaur saldu nai bai lituzke, ez die iñork ordainduko orrenbeste. Esan genezakegu, obe dutela prantzesari ontzia erregalatzea.

Bai, arraintzale arazoak kalte aundiak ekartzen dizkiote ta beste biderik ez daukate: sartu ez sei milletatik barrura. Ba-dira bi aldiz zigortuak izan diran ontziak, ta kontu egin zazute irugarren aldiz arrapatzen ba'dituzte...


E. OZKIN

Itxastarren Negu Beltza

Benetan izan oi da baltza negua gure arraintzaleentzat. Ta au, eguraldi txarrakaitik baiño arrain ezagaitik geiago.

Udabarri ta udan gitxiago bada be beti zerbait atrapauten dabe; antxoa ta atunari beti zerbait ataraten jako. Neguan, negu baltzean izaten dira kontuak, Urril'etik Jorrail'era arte.

Ta ez da au oraingo kontua soillik. Orain ogetamar edo berrogetamar urte be bardin zan. Orduan besigutan ibilten ziran neguan, baiña irabazi andi barik. «San Anton, bixigu zarra a monton» esakera zarra, orixe, esakera utsa besterik ez da izan gure gomutaz. Iru-lau



illabeteko besigutean ogetamar ogerleko irabaztea, irabazi andia izaten zan, gitxitan ikusten zana. Orregaz gaiñera apaltzeko zerbait, berlenka edo kolaxua. Gitxi gora-bera astean bein txandan tokaten zan besigua be ezin etxean jan, saldu egin bear, bere diruagaz beste zerbait erosteko. Ez dakit Gabon egunetik kanpora besigurik jaten ete genduan etxean, aita arraintzalea izan arren. Negu askotan, ontzi-jaube ta tostartekoen artean (baltzan) egiten zan korda edo apaxua be ordaindu barik gelditu ta gero, antxoatean edo ordaindu bear.

Aspaldi laga eben euskaldun arraintzaleak besigutako arraintza modu a. Geroagoko urteetan txixarrotan ekiten eutsen, ta azkenengo urteotan antxoa txikitan nastau izan dira. Arraintza modu biak irabazi gitxikoak; ta orain azkenengo onetan be ezin jardun, udabarriko antxoa urritzearen errua berori izan daitekeala-ta.

Ta orain ezer be ez negu denporarako. Bakarren batzuk arrastean ekingo dautse ta beste batzuk esku apaxuz lebatzetan. Baiña bajurako ontzirik geienak or kateetan lotuta negua igaroko dabe ta euretako arraintzaleak ezer egin barik kalerik kale. Irabazirik ez ta kalera urten ezkero dirua bear! Egoera larria gure itxas ertzetako erri askotakoa neguan.

Baiña neguari bildurrik ez dautsan erri bat-dago Euskalerrian. Ondarrabia erri orren izena. Ondarrabia'ko arraintzaleak urteko beste edozein alditan aiña diru irabazten dabe neguan.

Euren arraintza modua eskuzko lebatzetakoa da. Ez da betiko kontua arraintza modu au Ondarrabia'n. Orain amabost urte inguru asi ziran, iñoiz bertan portu egitera joaten ziran bermeotar lebatzetakoak begiak edegita.

Ez dakit Ondarrabia'tik lebatz kala edo tokiak urrean dagiazan ala ez, ez dakit arraintza onetarako euskaldun beste erriak baiño Ondarrabia'k aukera obea ote daben. Ezta be ez dakit euskal kaietako ontzi guztiak orretan asi ezkero danentzat irabazirik izango ete litzaken. Ziurrago ez, bear bada. Antxiña arraintza modu au zabalduago egoan. Baiña orduan irabazirik ezak amaitu eban. Gaur arraiña egon ezkero (edozer arrain) errezago atrapauten da, tresna obeakaz lana egiten da-ta; baiña, orixe, egon egin bear!

Ez da erreza izango euskaldun arraintzaleentzat neguko uts au beteteko bide egokia asmatea.

Orain antxoa txikitan jardun al izateko eskubideak lortu nai ditue. Igaz arazo au zala-ta asarrea naikoa izan zan, gipuzkoarrak, neguko antxoatea galerazoten eban legeari jaramonik egin barik arraintzan ibilli ta arraia ederto atrapau ebelako.

Baiña ontzi guztiak orretan asita, batez beste irabazi andirik ez dabe izango.

KAMIÑAZPI

BASERRIA

Basetxea, ni igaz gogoratzea, arritzekoa ez dok. I ezagutzen aut beste ezer ta iñor baiño obeto. Ire babesean artu najuan biziaren lenen armasa. Nire gurasoen maitasun inguruan edegi jatazan begiak Euskal-errirantz. Eibar'ko lantegien zaratea eltzen ba'zuan be gure errirantz, niretzat bizia geure baserria izan jatakan.

Mendietako bear eta izerdiak, iñoz, ez jatazak astuko. Euskal semeetariko askok eguzkitan lez, trumoi artean, iñaurkin kontuan ta ikazgintzan euren biziari eutsi jotzen. Bearra, ardurea, seme alabak. Orra antxiñako bizi legea, Izarretik eta izarrera mendian bearrean. Baiña euskeraz eta euskal giroan geure izateari uko egin barik.

Soloak eta zelaiak be ba-jaukezan eta ba-dituk, oraindik, ire magal inguruan. Makiñabat neke ta izerdiz erne-minduak. Baiña millaka urteetan euskaldunen bizi abi izan intzan. Ta zenbat eta izerdi ta neke geiago artu, iri jarririko zergak be azi egiten zituan. Geroago ta giro txarragoa agiri zuan basetxe orue barruan.

Bizikera latz orrek ire semeetariko asko bildurtu jituk. Ta bizi eziñak jota, gazteak urirantz joakizak. Emen, mingarria dana, ta zerbait geiago nabari dok: Baserriak ez al-jok emoten bizi izateko bear dan beste? Basetxeko lana gauza ezaintzat artu al-jok, orain arte lugin bearretik jo daben euskeldun jendeak?

Egiz, baserriko lanak ba-jok bere bakardade ta gogortasuna. Baiña lugin guztiak basetxeko jaube izan ba'zituan, i ez induken, ain errez, bertan bera itziko. Igaz ta ire lantzailleekin iñor-gitxi arduratu dituk. Ementxe jak kezka, belumendiko basetxe urtetsua! Ik bear duan bestean, euk ezin eure indarrez ta jakituriz bizitza ori zuzendu. Ta ire semeak aspertu egin dituk, beti, aldatz gora bearrean.

Gure abi zarra! millaka urteen buruan, ik eraldu dok euskaldunen bizia. Ire bizi-gisara sortu izan dituk emengo jende arteko lege asko. Lege onekaz bizi zuan euskalduna bere bizitza aparteko errikoian.

Basoko etxea, ik ba dok eurea dan zerbait berezia, izkuntzea. Euskerea dok ire izaerea; bizia, indarra ta gizontasun berbera agertzen dituan izkera berezia. Euskaldunen naia, jokerea ta berbetea izate batekoak dituk. Gauz berbera biurtu zituan lur onen muga barruan.

Gure errietako gizon argitsuak iregana joaten zituan euskal bizia ta argitasuna artzera. Ik emon eutsen, beti, naste barik, gure izatearen barri. Euskal giarra, zana ta kirioa ta guzti orren babesa, izkuntza bertakoa, jakiturizkoa ta indartsua izan jituk gaur artean.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

BIZIAREN LENENGO URRATSAK

Gaur egun, eztabaidan dogu barriro, bizia gai illetatik edo bizirik bakoetatik «berezean» sortu dan ala ez.

Zartada izugarri batetik edo eguzkiak bidalitako parrastada baten ondorio bezela, izar-laiño edo nebulosa erraldoi bati erauzitako txingar gorizko zati bat azkatuko zan antziña baten, eta ori daiteke gure LUR onen sorrera, orain bost milla milloi urte inguru, agian. Emeki-emeki, beroz urtutako gaien ostutea ta gogortzea gertatu zan, eta orrela lurraren azala edo oskola sortu litekean. Arkaitz goriak, gero, ondar-aitzetara biurtu. Egurats aztun lodiak, otzitzerakoan, urtu edo kondensatu egin zun lurruna edo uratsa (H_2O), ta itsas-ibaiak sorrerazi.

Batzuen ustez, berezko sorrereak ez omen du «Jainkoaren baldintzarik» bear bizia sortzeko, edo, ez zula, une berezi orretan, Bere bultzadarik emango.

Lenengo ta bein, bizia sortu zitekeen baldintzak ausnartu bear ditugu: 1. Biziaren gabezia; 2. Bakteri eta beste izaki bizidun batzuek, orain diran ela edo molekula bizigaidun edo organikuak beingoan ezerezten dituztela jakiñik, ortik ateratzen da, biziaren gabezia bera dala, ela bildu edo korapillotsuen aurrerapideari atea iriki aal zizaiokean bakarra. Birusak, bizi gaietatik at diranean, leiartu edo kristalizatu egiten dira, baiña bizigarri baten izatean berriz biztu, erne edo zatika-erditzea izan.


Bero-giroa, ezetasuna, tinkaldia ta argitasuna oraingoxeen berdin antzekoak zirala onartzen da. Ala ere, eguratsa, beiñola, metanoz (CH_4), amoniakoz (NH_3), uratsez (H_2O)' ren lurruna, eta idrojeno edo urgaiez (H) osotua zegoen.

Beste alde bat ementxe dagoke, oraingoarekin: eguzki izpirratze edo erradiazioa gaurkoa baiño sendoagoa ta aberatsagoa izatea, nonbait, goi indarrezko izpirratze ultrabioleta izpietan. Indardun beste iturri batzuk oneik izango ziran: tximistindar erasoak edo oiñaztarri indartsuak; kizi-atomo zatiketatiko izpirramena e. a... Onelango giroan, orain bi edo iru milla milloi urte sortuko zan, nonbait.

Ba-dira, McGregor'ek arkitutako orain 2.600 milloi urteko alga baten aztarranak. Bear bada, bizia itsasoan sortuko zan, izaki bakunen bidez, A. I. Oparin'ek 1924'an ustego bat ateratzen du: Itsas aitzek, karburo metalikodunak ain zuzen, bizigaiak edo organiku gaiak sortzen dituzte, metanoa bereziki, ta aldaketa batzuen bidez bizia sortu aal litekela. Itz gutxitan esanik, bizia nukleoproteidoetatik biribiltzen da, bereziki, Desoxyrribo-Nukleik Aziduaren (DNA) eragiñez.

Lenengo urratsa bizigaidun ela bakunen sortze da. Alkarketa edo bizigaidunen alkartze soillenak, idrokarburuak edo urgaikatzak, urarekin eraso egiten duten karburu mearen eragiñez osotzen dira.

Urgaikatzok, beste ela korapillotsuagoetara aldatuko ziran ultrabioleta indarraren bultzadaz, edo ekaitz oldartsuen eragitez. Uraren elak bakantzean lortu zan osijenoa edo erdoiturra; osijenodun alkartuak osotu zitezkean.



Romberg'ek desoxyrribonukleik aziduaren (DNA) gaiak banatzea lortu zun. Otxoa'k ostera, erribonukleikarenak (RNA). Izaki baten ez da bizirik DNA makromolekula edo ela aundi ori izan ezik.

Nola osotu ote zan proteina a, olako baldintzak zituela inguruan? Ara gaiki orren zatiketea:


Tetranukleidoa
DR = desoxyrribosea (azukera)
Nukleotidoa
Nitrojenodun basea, GUANINA

PO_4
DR
Nukleotidoa
Nitrojenodun basea, ZITOSINA

PO_4
DR
Nukleotidoa
Nitrojenodun basea, ADENINA

PO_4
DR
Nukleotidoa
Nitrojenodun basea, TIMINA

DNA: tetranukleidozko kate bat da; nukleidoak, bata besteakin ortofosforik aziadua (PO_4) bitarteko dabela alkartzen dira. DR eta PO_4 txandaka ta alkarri lotzen dirala kaiñabera antzeko lerro bi alkarren aurrean jartzen dira, ta DR bakoitzetik base orretako bana aurrekoarekin bat egiten dira: lenengo ta bigarrena, edo irugarrena ta laugarrena, baiña iñoiz ez lenengoak azkenengoekin.



1. DNA nagusiak sortu ta bialdu daben Rna mezularia.—2. RNA au be, amin-azidu billa dator, lau gaietatik iru daroaz ezarrita, ta onek osotzen dute «itza» amin-azidu bakoitzari dagokiona.—3. Amin-aziduak, gero «itzari» jarraituta mezularian alkartzean «protein» barria osotuko dabe.—4. Guanina.—5. Adenina.—6. Timina, au beti adeninakin alkartzen da.—7. Zitosina, au guaninakin ostera.—8. Proteina osotua, gero soiñean bear dan tokira joango dana.

1953'an, Stanley Miller'ek aminoaziduak ardiesten ditu lenengoz. Amoniaku, metano, urgai ta urats naasketa bat (antziñako eguratsa bera, alegia) ipiñi zun tximistindar irauzteen erasopean, egun batzuk zear, ta ondoren aminoazido mordoxka bat idoro zun. Orren antzeko azterketetan gaiki korapillotsuagoak, azukerak e. a... osotu litezke.

1962'an, Klis-Matheus'ek urik erabilli gabe, polipeptidoak jaritxi zitun. 1964'an, Ponnamperuma'k, Miller'en naasketa ori, elektroi edo oskolki eraso pean jarrita, adenina ta zianidrik azidura (HCN) ateratzen ditu. Azken ondorio oni ura ta ultrabioleta izpiak gaiñeratzen dizkio, ta guanina ere lortzen du; gero ur geiago ezarrita, azidu ortatik azukera biak lortzen ditu RNA'ren erribosea ta DNA'ren desoxyrribosea.

1966'an, beronek, lenengo naaste ari fosfatoak eratxiki zizkion eta nukleotido bostak batera lortu al izan zitun. 1970'an, iparrameriketako azal-gorri indi jatorriko Korana'k, 77 gaiki eskuz alkartuta, «jene» orretariko bat, legamin-jenea besterik ez ba'da ere, lortu al izan du.

Arazo onen muiña, proteinen lenengo sorketea azaltzean datza. Igarri al izan dira ainbat mekanismu edo joskera, baiña arazoaren zailtasuna ta korapillokeria uka iziñak dira. Oparin'en eritziz, bizia, gaiaren aldaketaz sortua izan da, ta oindikarren gizaeskuz bear litzaken alkar-lotze ori egiña al izango omen da.

«Ustegabeko (casual) proteina»ren aldekoak aalezkotzat jotzen dute. Beste arrazoien artean, bitartean iragan dan denbora luzea ipintzen dute (2.500-1.000 milloi urteren tartea). Lenengo proteinea osotuez gero, sorreraren arazoa argitutzat ematen dute. Lenengo aminoazidoetatik zelulabakardun izakiak sortzen omen dira. Oneitatik, aldaketaren aldaketaz, esponjiduak agertuko ziren Terziario aroan.

ARANGOIENA

Ildakoai be Bizia Ekarriko Ete Dautse?

DENPORA PASA

Gaurko euskal aldizkariak umore edo aldarte kontuan alde ederra dabe lengoengandik. Gaur be Abeletxe'k ba-daki irakurleari irri eragiten. Baiña olako zertxobat. gora-bera oraingo euskal aldizkariak aldizkari asarratuak dira. Ba-dago bai oraintxe gure artean alkarreri eztena sartzea!

Orregaitik aztun be egiten dira askotan. Beraz, atsegingarriagoak izan daitezan, irakurgarriagoak, idazlan barregarriak edo gai ariñekoak tartean sartzea ez litzake txarto. Nire gaurko au be olantxe egindakoa da, gure buruausteak diran gaiak alde batera lagata.

Gauza arrigarriak ikusteko Jaungoikoak mende onetan mundura bialdu gin-duzan: Gizonari beste gizon illen biotz ta gorputz atalak ipiñi, gizonak illargira joan eta etorri mundutarron begien aurrean, laboratorioetan gizonak egin (jakiña, ez edozergaz gizongaiakaz baiño), ta irrati, telebisiño ta beste milla gauza arrigarri be gure denporetan egin edo asmatuak dira. Ta gizona danera oituten dalako, arrigarri diran gauzetara be egin egin (sic) da. Orain ezerk ez gaitu arritzen. (Ori bai, utskeriari ipinten dautsaguz izenik apartsuenak, erderazko «fabuloso», «maravilloso», «formidable» ta abar).

Nik uste dot oraindik gauza bat ba-dala edo izan daitekeala benetan arrigarria: Illak biztutzea. Bai orixe! Ta amesa dirudian arren onetzaz be zerbait asmaten asi dira. Bai, ildakoak otzetan jarri lebatza edo atuna lez ta eriotza ekarri dautsan gaxotasuna menderatzen ikasten danean bizia biurtu. Esate baterako, minbizia ezagutu ta bere osakaia arkitu daitenean (arkitzen ba da) bizia biurtu ildakoari. Orretarako ildakoak utsetik bera berreun graduko otzean euki bear dira ta eun edo berreun edo milla urtera biztu egin el izango ei-dira.

Ez da, diñoenez, ipuiña kontu au. Ederto azaldu ebezan arazoaren gora berak orretan arduratuta dabiltzanek aurten baten telebisiñotik.

Ni, erlejiñoian fededuna izanik olakoetan iñor baiño fede gitxiagokoa naz; ta neure ez jakintasunean milla «pero» ipiñiko neuskioz illen biztute orreri. Baiña alderdi batetik soillik begiratuko dautsagu: diru alderditik. Ildakoa, gero biztu al izateko lez izoztuta lagateko milloi bi laurleko biar ei dira. Ederra kontua! Orrek eriotzak daben gauza on bakarra kenduko dau.

Bai, eriotzak ba-dauko gauza bat ona, beti esan izan dana, zera, beartsuak lez aberatsak be bere atzaparretatik iges egiterik ez dabela. Len be dirua dala ta makiña bat txarkeri munduan izaten dira ta orain diruduna biztu al izango ba da, zer?

Ez dakit gizonak gizonik sekula biztu al izango daben. Ori barik be munduko bizi lagunak gorakadea egingo dabe. Emendik ogetamar edo berrogetamar urtera orain aiñako bi edo iru izango dira munduan biziko diranak. Ta gaur iru milla milloi lagun ezin bizita ba'gabiltz, orduan zazpi edo amar milla milloi aori nok jaten emon? Berrogetamar urte edo eun urte lenago ildako kristaldutako mamu zarrai bizia emoten asteko gogo gitxi izango dala uste dot orduan. Biziak be naikoa lan emongo dabe.

ETXABURU'TAR J. M.

BIZITZAREN BEERAKALDIA

Jaio, bizi, baiña ondoren, azkenean, il...!
Eriotzea benetan, beti gu zemaitzen
ludiko argira elduten gareanetik,
ain gogorra da, oso zitala, gu zemaitzen.

Bizia luzea?
Laster amaituko da?
Noiz jazoko ete
gure azken ordua?

Jaiotzetik il-arte, luzeagotu egin
gura dogu guztiok, eta izan leiteke,
baiña alperrik izango da guretzat atsegin,
erreza ez dalako ta, zelan egin geinke?

Iltegira joan,
bai gomuta itunik;
burua, beroan;
biotza, negarrez-min.

Bai, naigabezkoa izango da illaldia,
gaztetan garrantzirik ez dautsagu emoten
baiña —nai ta nai ez—, gure ordu a, gorria,
etorriko jaku, ixillean, gu lotuten.

Gure azken orduan,
Ene Jainko laztana!
Emon zure onduan
betiko atsedena.

ELEZKANO'TAR IMANOL

ERRI BAT GARA-TA

Ez dakit noiz adipetuko garan erri bat garala ta beraz sendi aundi bat, eta berau dan lez, gizabidetu ta jasan bear dogula.

Ama batetik sortuak izan arren ez dogu ikusten ezberdiñak diranak? Janari, jateko batek, egoi ezberdiña du ta, batzuri on egiten dautsanak besterentzako kaltegarri izaten da sarritan. Sendietan izaten dira «etxe-kalte» deitzen jakeenak, erderaz «ardi-baltzak»... ez asko baiña... Ta ardi baltzek ugaritzen ba'dira... nor uste dozue izan leiteken errudun?

Bai, ta orregatik; nork eta nori kendu leikioz izakeran, oldozmen, adimen eta iradipenerako eskubideak? Tamalez geure artean, zentzun bateza-baidetan gabiz indarrak eta aldi ederrak galtzen... arerioak barre egiten duten artean. Gero, antolatu ta atondu bear ez diran gauzak alboratu jaurti, ta elburu bat dogunok alkartuz, agertuko dira ta azterkatuak izango dira, arrotzale guztijok, alboratuta; eta onek ez dau esan nai, nik euren gogapenen aurka naizenik, ez! Bakotxa bere gogapenen jabe izan bear dabela baiño. Batzuk, gazu uletsuen aurka, zer esanik naiko darabille... nik ez dakit zergatik, ba asko, geienak onak ezautu ditudaz, zintzoak, burtzaletasun gabeak. Besteak, sendiaren aurka edo ez dala bearrezko diñoenak... ez dira asko izango, ta urteak igaroan aldatutu diranak zalantzik gabe. Asko izan dira ta dira odolez sutsuak eta nor ez da izan aldi orretan... gaxoa izan ez ba'da beintzat? Gaztea beti egiarn eta zintzotasunaren alde jokatzera gertu izan da, zarren akatzak edo gaiztakerien aziak ikusi eta ikasi arte.

Ziñeskintzan... au beste gauza bat da; eta zergatik ez egirik esan? Nortzuk dute errua asko alboratutean? Ziñeskera sakona ta apaltasun andikoa bear dau gizonak, egiz, aundiki geienak ziñeskerea euren gora-berak obetu ta ebazteko baiño ez dituela, ikusirik.

Alan ba itxi daiguzan ezta-baida zitalok eta jarrai zuzen lanean, azkatasunak eta beraz euskerak eskerrak emongo dauskuez-eta. Babilonia. Ninive ta abar joan ziran... ekaitz ostean eguzkia.

EGILLETA

korapilloan

Ez dakit gizonari noiztik datorkion aske izateko gogoa. Nolanai dela ere, ez da atzo goizekoa; ain gutxi egunekoa.

Aske izan nai ta korapilloan korapillotuak gaudelako ezin izan... Pentsakizuna bakarrik dugu geren-gerena, ta au ere, ez nai genuken bezin aske. Politika bati erlijio bati, giroari, diruzaletasunari edo agindu naiari korapillotua. Eta loturak ez digu ikusten uzten. Griñaren setan ez bait-da iñoiz argirik izan...

Nola diteke, ordea, aske nai dugunok korapillo barnean lotuta egotea? Loturen arrazoia gure gogoa baiño indartsuago delako? Ez gera aske ta ez dut uste berealakoan izan gindezkenik. Askitan gertatzen da zentzuak askatzeko eskatu arren, eskutuko griñen indarrak leen baiño korapillotuago uztea.

Adiñez gazte diranen esanera, zaarrok omen gera loturen egille, Geok aske ba'giña bezela! Pentsazagun, une batean bederik, arrazoioa dutela. Zer ondorio atera genezake?

Guziok dakigunez, zaar baiño gazte geiago dago mundu zabalean. Gu baiño geiago dira.

Gorputza zaartzen dijoan bezela aultzen zaizkigu naien indarrak. Gazteen gogoak ermoagoak dire, gazte diranez. Gu baiño kementsuagoak dire... Nola diteke orduan gure korapilloan korapillotuak egotea? Ori onartzera, gu baiño makalagoak direla aitortu bear. Onek ez du, ordea, egiaren itxurik. Arrazoiak beste zokoren batean egon bear du.

Mundua gaizki dagola esatea, ez dut uste iñongo dogmaren aurka egitea denik; ez izkutuko egia denik...

Egi ori da gazteak, bein ta bitan, egunero esaten dutena, Egi ori da baita, gazteak oraindik sortu baiño lenagotik genekigun egia... Eta, aurkako esanetan baiño kontrako egintzetan geiago ibilli geralako ezagutu dugu, soiñez lotuta giltzapetua egotea zer den. Esan, esan... Ori da errezena! Baiña ori ez da kontua. Esate utsak ez bait-du gizonik askatzen Kontrako ekintz guziak dakar neke aski. Aitaren bizkarretik jan ta amaren kontura dabillen gaztediak, ordea, ez du nekerik maitte. Gurasoen burgeskeria gaitzetsi bai, baiña, esatez bakarrik; eta bitartean, Onassis'en seme antzeko pantasian bizi. «Askatasuna»! oiu egin baiña, esatez ez dauketena arriskatu baiño len, gaitzetsitako bizi moduan izan naiago... Zorigaiztoko korapillo zoriontsua!

Korapilloan korapillotua egon nai ez dunarentzat aparia prest dago. Berritsuketari utzi ta ekintzei eldu.

Landare indartsu ta ezea nai dugunean, aldameneko belartxar guziak kentzen dizkagu. Berdin gure artean. Mundu zuzen bat nai ba'dugu, leen, geok bearko ditugu gure biurrikeriak utzi. Eta, orretarako, maite dugun, geiegi maite ditugun lasaikeri ta erosokerieri uko egin. Korapilloan ondo bizi danarentzat aldapa neketsua dela? Orduan begoz isillik!

Baiñan, korapilloko loturak atzamarka, ostiko ta aginka, kosta-la kosta apurtu nai dituenak, ba-dauka, arrane pola! itsegin ordez zertxo bat geiago zeregin.

ZALOÑA

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA



Euskal-jakintzaren egarriz bizi ba'zara, one emen, sakel-neurriko idazti politetan irarrita:

Arana-Goiri'ren	ZENBAKETEA
Azkue'ren	IPUIÑAK ETA MORFOLOGIA
Kanpion'en	EDESPENAK
Arbelaitz'en	IZTEGIA
Iztueta'ren	DANTZAK
Garmendia'ren	IZTUETAK AGERTU BAKOAK
Peña-Santiago'ren	GIPUZKOA iru aletan
Gilarte'ren	JUANA DE ASBAJE

Eskatu «La Gran Enciclopedia Vasca» ra.

Apartado núm. 1.510. BILBAO

JAKINGARRIAK

Emakumea 24 urtedun dala bataz-beste ezkontzen da: Gizonezkoa 27 urtedun dala; jakiña gitxi gora-bera; ba-dira 17 eta 16 urtegaz ezkontzen diranak be. Gaur iñoz baiño geiago artzen da ezkontza-bidea.

* * *

Uri ederra, aundia, zoragarria New York. Orain urte batzuk an izan nintzan eta egia esan gauza on-eder asko ikusi nituan. Baiña ba-ditu bai bere alde txarrak be. Gauza ikusgarriak bere enparantzak eta kaleak. Laiñoetaraiño eltzen dirala bide bere etxe batzuk. Egun osoan ibilli ta ibilli gora ta gora begira kokoteko miña be egiten jatzu. Luzeran bost eta erdi kilometro eta zabaleran kilometro bat ditun baratz ederra be ba-dau. Baratz ontan zenbat ikusgarri. Jolas-tokiak, zineak, zirkoa, libututegiak, uger-tokiak eta abar.

Beste aldetik New York txar-ispillu be ba-da. Ara: 3 bat gaizkin-krimen egiten dira egunero; 25 bat erauzi-kolpe; 125 bat lapurreta. Poliziak 600 bat lotzen ditu egunero; 250 bat ilten dira egunero; biotzekoaz 105 bat; bizienaz 50 bat; eta bideetan automobillak eta atrapauta 3 edo geiago. 460 bat ume jaio oi dira; 300 bat ezkontza iragarten dira.

4 milloi ta erdi doaz lanera; milloi bat ume eskoletara; metereoloji izparrak 100 millek entzuten dabez; 23 milloi idazki-karta artzen dira ta beste ainbeste bialdu be. 4 milloi ta erdi ibilli oi dira metroan, au da, lurpetik dabillan trenez; 1.330 egazkin-aeroplano eltzen dira Kenedy izeneko zelaira, aeroportura 45.000 lagun-bidazkarikin; beste 8 bat zelai euki bear ditu New York'ek, 90 itxasontzi eldu-urten: 9.000 joan oi dira Fith Avenue'ko liburutegira; 30 milloi liburu banandu oi dira egunero; 3 milla gizonek ikusi oi dabe egunero ONU etxea ta 2.500'k Askatasunari jasotako irudimonumentoa. Miss-Liberty deitzen dautsoe amerikatarrak. Ta danoi 24 orduko egun baten.

* * *

330 eguneroko —periodiku— agertzen dira Indian 3 milloi alekin. Indiak 14 izkuntza daukoz bereak lez. Eguneroko katoliko garrantzitsurik ez da oraindik; alan be ba-dira batzuk Probintzietan: Depika, Malabar, Mail, Kerala, Times, Vorker, eta illerokoetan Malayalanez idatzita «Jesusen Biotzaren Deia», «Sendi Katolikoa», «Apaiza ta Eukaristia», «Gizarte-Katoliko Ekintza» ta «Misio Baserria». Illerokoak Karmeldar euskaldunak zuzentzen daben Alvaye'ko Seminario Nagusian argitaltzen dira

GOIRIA

CASCO VIEJO

Martín Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

TENDERIA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BIBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

HERIETAKO BERRIAK

Segura

Agurrik beroena.—Emendikantxe bijuakioe «AGUR» onen idazle, arpidedun, zabaltzaille eta irakurle guztiei. Eta agur bero au elurrez jantzita gaur agertzen dan Aitzgorri azpitik dijuakie, oneraiño «AGUR» onen berria etorri bait da.

Zorionak.—Idiazabal'go Ploentiño Goiburu'ri. Aitaren aldetik gutarra da-ta, bere Loiola eta Donosti'ko irratsaioetan jatorki jarduten entzun diogu. Oso gustora entzun ere gaiñera. Ba-dago or bertsolari bikaiñ bat izatera etortzeko gaia.

Zorionak bere aita segurarrari ere. Emengo «Korralen» jaioa da eta Idiazabal'go «Erdikora» ezkondua. Seme yayua daukak, Austiñ! Ba-dik gatza ta piperra ugari!

Noiz?—Berriro asi bear duan gure irratiak galdezka amaika ba-daude. Baita ia Atxukarro, bertatik itzegin oi zuana bizi dan ere.

Erantzuna Elgarresta Jaunak dauka.

Peri ta azokak.—Izenaz Zurutuza J'k oso idazlan ederra argitaldu berria du. Asteero egin oi detan bezela guraizaz moztu eta gordea daukat. Oso da bikaña-ta.

Gure zaarrak asko samintzen dira leen oi ziran periaz gogoratuta. Nik emen ezautu nituan Illbeltzaren 22'koa eta Abenduaren 21'ekoa. Besterik ez. Ezin ote ditezke nolerebait berriz piztu?

Berandu xamar.—Jakin det Australia'n illberri dan baten eriotza. Jaiotzez zegamarra zan, baiña umetatik gure artean bizia, bera eta bere bi anaiak. Tomas Ormazabal Oyarbide, apaiza Zeraiñ'en eta Astigarraga'n egona eta gero Australia'ra joana. Leentxeago illa da bere beste anai Joxe, urte askotan Berastegi'ñ eta Irun'en maixu egona.

Donosti'an berriz ill zan Joana Ormazabal Insausti, erri ontan bizia eta emen aiñ maitea daukagun sendiko alaba. Bere Aita, Antonio, eta bere ama, Kattaliñ, «Gipuzkoa osoko senar-emazte langilleenak» izan omen ziran garai batean. Ala esan oi omen zun emengo bikaio izandako On Prudentzio Arrieta zanak. Bai, ondo irabazitako ogia janak biak! Gerora Donosti'ra joan ziran bizi izatera eta antxe illak dira biak. Antxe bizi zan Joana ere ill danean. Segura'ko «berri billtzaille eta emaille», deitzen omen zioten, an erriko berri danak zearo jakin oi zitualako.

Baita ere Donosti'an illberri da Jorke Leska Arregi ortzlari jauna, luzaro gaxo egonda gero. Ementxe bere gorputz illa eortzi zuten amarenaren ondoan.

Zeruan gerta bitez. Otoitz bat irakurle.

Ala bear litzake.—Emen ere. Baiño... Zer gero? Prantzi'tikan etorri berri dan bati aitu diot an nekazaritza sendotzen eta indartzen dijoazela. Arrituta utzi gaituzte berri batzuk. Agintarien laguntzarekin, jakiña, ikaragarrizko aurrerapenak! Batez ere baserri zaartuak berritzeko eta berriak jasotzeko ematen dizkien laguntza aundiak siñistuere eziñeko aiñakoak dira.

Alakoxe zerbait etorko ba'litzaiguke, ez genuke negarrik egingo.

MADURA-ZALE

Bermeo

Txalupak kaian lotuta egon dira, Gabon jai ostean arraintzaleak artzen dogu atsedena, antxoa sasoia eldu arte batez ere. Aurten Urtarrilla amaitu ondoren izango gara arraintzan. Igaro diran urte oneitan ez gendun nai izaten sasoi onetako antxoa txikia arrapatzera atera, baiña igazkoa ikusi ondoren, gure anai giputzen jokabidea, antxoa txiki ori neurri barik arrapatzea, eta txarto saldu, guk ere ebatsi bardiña artu dogu: danon ondasuna ala danok ondatu. Urtarrillaren azkenetan urtengo ziran Sondika'tik, egazkiña artuta, Lamera Punte, Noche de San Juan eta Albacora txalupetako gizonak, Canarias aldean euren arraintza sasoia arraitzeko. Suerte on bat opa dautsegu.

Kultura arazoetan auxe esan bearra daukot: erri au oso baztartuta dagola alde guztietatik. Arlo onetan, arduradunak iñoiz ez dute ezertxurik egin, eta egin nai izan dabeeneri ere ostopoak ipiñi. Arraintzaleen etxeak ere beste gauzarik ez. 2.000 ta geiago, gizon, iru illabetetan etxean daukoezen buruzagiak, kezka pizka bat euki bear leukee, batzar toki ederra ere ba-daukee-ta, batez ere itzaldiak emateko kultura aldetik.

Socorrismo'a, Osagilleen arazoa garrantzizkoa da itxasoan, an ez dago klinikarik-eta, baiña itz guztiak alperrik dira, ta alperrik sarri entzun aurrerakuntzaren zaleak gerala.

Bermeo'n, sozieda edo biltokiak ugaritzen doaz. Orain lau bat urte, bat bakarrik egoan erri onetan, baiña orain 12'rarte eldu dira, eta esan bearra daukot, danori euskal-izenak ipiñi dautsezela. Nere ustez, biltoki orreitan ez da jan eta edana bakarrik izan bear, iritxiak azaldu, erri nortasuna agertu ta kultura gaietatik ere zerbait egin; orren bearra ba-da-ta.

Aratuste jaietarako, ikastolearen ardurapean, euskal abeslari saio bat antolatzeko amesa dago, Ertzilla antzokian, ta ikastolearen laguntzarako. Erriko abeslari guztiak izango ei-dira bertan, ta dakigunez ba-da gogoa sortu barria dan «Txori-Alai» gazte taldetxoa entzuteko. Aurrera ba, euskeraren aldeko zaletasun au.

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Zamakola

Erderaz La Peña izena daroan Bilbo' ko inguruan dan auzo onek, besteak lez, gauza onak egiteko asmoak eta leiak daukaz; ekin, ibilli, erriko arazo guztiak aztertu ta zuzendu... Orretarako, ba-dira emen talde batzuk, orretarako urduri, erriaren oberako zerbait egin guran.

«PEÑA» KIROL TALDEA.—Au dogu auzoko talde nagusia, ta erriarteko bigarren maillan jokatzen ba'dau be, gure auzo onen izen ona jasotzeko bear diran garaipenak lortzen alegintzen da, ta gaiñera, emengo gaztedia ostikoketara zaletu dadin bultzaka; kirol au beste asko lez, bearrezkoa da ba gazteak indartseko.

««OSEA» MENDIZALE TALDEA.—Au dogu emen mendizaletasunezko kirol ederraren aurrelari, Emen, zaar eta gazte alkartzen dira jaiegunetako eta baso-zelaietako edertasunak eskuratzeko; jai alperrik ez, aize garbi gozoa ta soin-ekiñaldi osasuntsua bai, danontzat. Onelako beste bazkunak lez, zortzi urtetik, amabi artekoen ardurea dau, ta mendizale egin daitezan alegin aundiak dagiz, sarri eroaten dauz mendira, goizeko txangoak edo egun osokoak egiten. Ara ba, au, talde kementsu au, izango da laster gure auzoaren ekintza kutuna, baita olakorik ez daben errientzat bere, eredu bikaiña.

SENDI ALKARTEA.—Esan geinke au dala erriko arazo guztiak batzen dituan alkartea, emen dira ba, bere izenak diñoanez, auzoko sendiak eta onen bidez, ostikoketa eta mendizale taldekoak bere. Alkarte onek zuzendu al izango ditu arazorik geienak eta aundienak, orregaitik danok alegintzen gara bertan alkartu eta geure laguntasuna eskeintzen. Or izango da auzo onetako batasun osoa ta indartsua.

Esku artean darabillazan gaien artean ona emen batzuk: lora-baratzak egin, umeak nun jolastu izan dagien; pelotalekua, tenis-zelaia, eskubaloiketa ta otarrabaloiketa jokoak egiteko tokiak. Ta soiña dana ez danetik, Idaztitegia, batzartokia, ikastolea, txistu-ikasketea, dantza-taldeak eta abesbatza bere osotuko dira, Asmo aundiak benetan, aundiegiak batzuentzat, baiña emen dagon zaletasuna bere ez da txikia, ta asmorik onenagaz lortzekoak gaiñera. Orretarako, biotz-zabalik gazteak eskeintzen daben laguntasuna dogu, ta etxekojaun batzuk diarduen ekiñaldi kementsuan bultzakadea be bai.

ARKAITZ

Zestua

Bearrez eta eginbidez eutsi bear diogu guk, gure ikastolari. Zestuarrok ez degu betekizun ori zearo egiña ikusten. Ikastola ez bait-da gizon bat edo besten egin bearra, Zestuar guziona baizik. Beraz, gure errian euskal-giroa onela bakarrik izango degu.

Baiña eskuan daukagun lan au, aurrera eramateko diru-iturri gutxi ditugularik; Ikastolaren jarraipen eta etorkizunerako, dirua bear eta aunitz gaiñera. Ofizialki laguntzarik ez duan bitartean, naiz eta tamalgarria dala jakin; euskaljai, zozketa etabar... auen laguntza dala-ta, Ikastola aurrera doa. Ala izanik urteoro bezela aurten ere jai-aldi bikaiña antolatu dute.

Larunbatak 19 gaueko 9'tan euskal-ikastolak eratutako jai-aldi zoragarria izan zan. Bertsolari, Abeslari, Trikitixa ta aurkezlari. Ikastolari dioten maitasunagatik eta beste gabe laguntzera etorriak.

Jai-aldia Eliz-ondoko antzokian antolatu zan. Parrokia eskertu bearrean aurkitzen gera; jai auek eratzeko beiñere ez bait-dute oztoporik jarri. Beti ta ikastolak jai-aldiren bat eratu nai izan duanean, antzokia biotz onez eskeiñi izan oi digute, milla-esker.

Jai-aldiak bi zati izan zituan: Lenengo zatian, sarrera bezela Zumarraga'ko trikitixa bideko-eresia astinduaz, sarreratik aurreraiño joanaz. Aurkezlari, Sagartzazu'tar Itziar. Itziar'ek lendabizi entzuleak agurtu zituan, eta ondoren bertsolariei, bera aurkitzen zan tokira deituaz, bildu zituan.

Bertsolariak, Agirre, Lazkano, Uztapide (gaztea) ta Lilibe. Beti bezela bertsolarien jardun-aldia oso gogoko izan zitzaigun. Gai nagusi batzuk ba-dira bertsolariak sarri erabiltzen dituztenak: Jainkoa, euskera etabar. Beraz, erri-bertsoetan dauskagu ainbat ikasgai ta eredu, goi-argi atsak erainda edierazteko.

Bertsolarien ondoren Zumarraga'ko trikitixa, ura zan giroa! Esku-soiñu txiki aregaz jo egin bear du, ark, jo zuan bezela, alajaiña! Portatu ziñaten.

Lenengo zatia trikitixaregaz bukaturik, bigarrenaren asiera Zorion Egileor'ek eman zion. Abesten asterako, mikroa eskuan arturik, auxen esan eta adierazi zigun: Ni ez naz Bikaitarra, ez Giputza, ezta ere Naparra, ni eukalduna naz! Eta abestirik politenak eta diztikorrenak eskeiñi zizkigun. Bejoandaizula Zorion! Mundaka'tik oneraiño etorri ziñan; eskerrak zure laguntzagatik, etzaitugu aztuko.

Eta jai-aldiari bukaera emateko, Manolo Urbieta zuzendari zutela, Zarautz'ko Oleskariak, Agur Jaunaregaz asi ta bata baiño beste abesti ederragoak abestuaz, gure antxiñako arnasa eskeiñirik oso txalotuak izan ziran. Zelan aztu? Eskerrikasko.

Bestalde esan bearra dago, antzokia dena beterik aurkitzen zala. Erriak ongi erantzunikan, ikastolarentzat laguntza izan zala, ezin uka.

Zozketa datorren asterako utzi zuten, berandutu egin bait-zan, eta jai luzeak aspertzen dularik, laburtze arren atzeratua izan zan.

Iñoiz lenago esana aitatu dazagun berriro: Ez ditezela jai auek, jai utsetan gelditu.

SAGARZAZU'TAR JOSEBA

Arrasate

OPORROLDIAK.—Emengo lantegi batzutan oporketak dira, langilleak irabazte geiago nai duela ta. Baiña azkenez danak langille eta ugazabak bateratu dira eta azken ona izan du.

Oporketa oneik kalte ugari izaten dute, bai langille eta ugazabaren-izako. Emengo lantegi geienak burdin lanketan egiten dute eta lanbide onek ez-dute salketaetan gorantza aundirik izan aspaldian eta ugazabak sarritan izan estualdiak. Baiña, bestalde, langilleak ere bai euren arrasoi ugariak. Izparringietan ikusi izan dugu bizimudua apur bat igo dala, baiña galdetu gure etxekoandre «sufrituai» eta ikusiko da zerlako gorakadak izan ditun, batez-ere janariak, jantzkiak eta oiñetakoak eta ikusiko da garbi, gaur irabazten dana ez-dala naiko itxuratxo baten bizitzeko. Orregaitik, danon anaitasun artean egin bear dugu izan dezagula bizi-modu egokiagoa.

BETI EUSKERA.—Euskaldun askon artean bai-dugu oitura txar bat eta berau da, geure erosketak egitera goazenean erderaz egitea geure eskabideak, eta oitura au baztertu egin bear dugu. Euskeraz egingo ba'genu, langille ta ugazabak beartuak izango litzazke euskaldunak izatera. Beste gauza bat nabaitzen dut egun oneitan eta auxe da: Donosti'ko Erri Irratiak ba-du saio bat egunero eguerdiko amabietan emoten dabena, ta bertan galdera batzuk entzuleei; baiña galdera orreik erderaz egiten dira eta bai-dira euskeldun zintzo batzuk euskeraz erantzunten dutenak. Galdera orreik egiten ditunak, nunbait, ez-daki euskeraz, eta orduan an egoten dan emakume euskaldun jator eta abots ederreko batek erantzuten du bere ordez Emakume onen izena jakin bearrekoa da: Txaro Arteaga. !Zorionak Txaro! Orra ba eredu ederra emoten dabena euskaldunei eta danok olan egingo ba'genduu Irratietan eta beste leku askotan itzlari euskaldunak izan bearko litzazke.

ARRIARAN.—25 urte edo geiagotan puntarengo pelotaria izan dana: Arriaran'dar Joseba, utzi egiten dio pelotari izateari. Bi urtetan txapeldun izanikoa da. Jokalari bezela eredu onekoa izan ba'da, gizon bezela lagun asko ditu, eta euskaldun bezela ere beti tinko jarraitzen du. Zorionak Joxe eta beste urte askotan opa dautzut izan dezazula zorion asko.

ERIOTZAK.—Jaunak beraganatu du Kerexeta'tar Koldobike. Zaldibar'en il da, baiña erri onetara ekarri zuten obiraltzeko. Nere samin agurra bere senideei. G. B.

Baita il da, Laskurain'dar Eusebi. Au Antzuola'koa semez baiña erri onetan urte asko zeramazkin. Oso ezaguna zan emen, ba bere lanbidea urrutikuskin gaietan ibiltzen zan eta orregaitik askokin zuan artu-emona.

Beste eriotza bat Gazteiz'en: Benanzio Kostobal. Erri onetako semea zan eta Gasteiz'en bizi zan eta bertan il bere. Jaunak Beragan dezala.

UDALAITZ

Bilbao

SALBE'KO ZUBIAREN AMAIERA.—Bilbo'ko azken izparrak ugarituaren ugarituz eskailluekaz uretan jazo oi dana ta itxas olatuak negu illunean bezelaxe esku artetiko ba-joakuz. Ala ta be banaka batzuk gaur zuen begirapenean ipintea gura neuke. Lenen ta bein Salbe'ko zubia, Bilbo'ko gerri urduritsua esan leitekean zubi mardula, amaitu zan beingoan ta bere burdiñezko lepo, giar gaiñetik 30.000 berebil-edo, or-or egunero igaro oi dira.

Artxanda'ko Trueba Ikastetxetik astero iru bider, euskerazko lenengo ikaskizunak umekondo banaka batzuei emon ondoren jatzitzean, igaro bearra dot. Zabala benetan, baiña Bilbo'k beste orrelako iru bear ditu nire gardiz. Gauaz be miragarria dirudit. Argi izpiz beterik dagerkigu. Gaua eguna baizen argitsua damotsoen argi dirdiratsuz.

EGAZKIN-ZELAIA. — Egazkin-zelaitzaz be mintzatu giñan ille batzuk dirala. Zelai onen agerbidea, argi erkiñez nik uste, ba-iatorku. Sondika'koari jarraitze osca damotsoe; ala ta be osotu bearrean bere gerria gurutzaturik, uste gendun jarrai-bidea be bertantxe itxaron bearrean aurkitu oi gara. Lengo luzaerea, oingo zabaleraz ornidua.

Bi aneurkin gora-berako zeregiña. Ala ta guzti, geienen eritxiz beintzat, ez ei da erabaki bikaiñena. Nor galtzaille? Aldakuntza andirik ez ba'dago, beti lez baserri ta baserritar jasankorrak. Noiz ta zelako diruak jaso bearko ditue euren lur-emankorrakaitik? Oneik itaunak, gerokoak beti geroko, baiña bien artean kalteak baserritarren lepo gaiñetiko. Ori ei da euskaldunen aduko? Noiz arteko? Aldiak aldi, gizaldiak gizaldi, gure birlobak esan bearko.

LEJONA TA BILBO'KO IKASTETXE NAGUSIA.—Lejona niretzat erri kutuna da. Lagun ta ezagunak, aspaldi bateko ikasleak erruz bertan or-emen sakabanaturik ba-daukadaz. Izpar ituna damoskue. Bide zabaleko zugatzak ebaji ondoren enbor-mokorrak soillik bide ertzeetatik dagerre, eremu bat bezela geldi-azarik erriko bide nasaia. Afrika'ko Sahara'ra joan bearrean gaude, oasis bateren billa, zugaitz-ondo ta kerizpe billa? Bilbo ta ingurumarietako errizkak bear ditue bai, kerizpeak ez-eze zugaitz ugariak, zelai orlegiak, egonleku paketsuak, arnasgarri onuragarriak.

Emendik urrats batzuk goruntz ta Bilbo'ko Ikastetxe Nagusia egi aizetsu baten gaillurrean dagerkigu. Oraindikarren guztiz amaitu barik. Bardin desakegu araiño bertaratu bear gaituezan bideekaitik. Ikaskizunak, banaka batzuk ba'dira be, asi jakuzan. Ikasleen artean ondo-eza nabaitu oi da. Bertaratzeko denpora-aldia ezezik dirua be lartxo egunero bear. Berogaillurik ezak be negu gorria, gogorragoa dagiotse ,ta txarrena dana noizean bein be ikasleak joan arren, Irakasleak oporrak arturik, Ikastetxe Nagusiaren asiera oztopoz beterik dagerkigu.

Ez gaitezan baiña kikildu. Guztioen alegiñak baturik uste dogun lez, datorren ikastaroak argi izpi barriak badakarskuz-ta.

Emen be ba-dogu, Euskal Kutsuz'ko Ikastetxe Nagusia izan daiten ta ez edozelangoa, alegindu bearra. Bai bein.

Danok baturik astiro bada be euskal lanak sendotu, ezari ezarian oberatu, euskal-gaietan Deusto'ko Ikastetxe Nagusiaren laguntasuna eskatu, euskerazko bideak urratu ta al giñoan Irakasle ta Ikasleak irme jokaturik ikaskizun orokarrak, euskal-tajuzkoak gazteen biotzetan erein, erri-zaletasuna bipil aldeztu.

Zeregiñ yaukal, bikañenetarikoa gurea. Urrean dagon geroko baten Euskal-Erriak gartsu txalotuko dauana, alegia.

ARREGI'TAR JOSU

Irun

Erromatar aztarnak.—Lenengo eta bigarren gizaldiko aztarnak ugari dauzkagu ingurumari ontan. Nork ez du, izan ere, Ondarrabi'ko Asturiagakuen berri? Eta emengo «Andre Mari» eleiz aurrean agertutako garai artako txanponak? Oraiñ, berriz, «Ama Shantalen» deitzen diogun eleizatxopean aldi bereko ildegi aundi bat aurkitu dute eta iñun diran buztiñezko ontziak. Dirudianez, orduan emen erri aundiren bat zan.

Ez da bada gure erria atzo goizekua.

Olaberria.—Irun'go auzo bat da. Gaur erri barruan ia egiten da. Inguruko beste bi auzorekin bateraturik, Larreaundi eta Gozategia'kin alegia, parroki berri bat jasotzera dijuazkigu. Eguzkitza'k ere beaiekin bat egiten du.

Artzai bealdekua dute-ta, On Joxe Antonio Kerexeta'k, akullutuko ditu erabat dana, bear bezela, bukatu arte. Zorionak olaberritarrei.

Joan zaizkigunak.—Zoritxar batez Joan Joxe Anabitarte Guruzeta. 82 urtean Enrike Agirretxe Pikabea, inguru ontako arraintzale

ERRIETAKO

eta eiztari zaarrena noski. Katean, Joxepa Olazabal Etxeberria, Ugarteren alargun zinzoa. 81 urtedun Joakina Urresti Barinaga, Azurmendiren alargun on-ona. Eta 82 urte beteberri Rufino Larrea Arrieta, zegamarra, gurea etzanikan etzaigu iruitzen baiña; urte pilla aundia bait zeraman emen. G. B.

Urtain.—Zale asko dago gure artean ere. Egun abetan Krixpiñ Barrena irudigille ospetsu eta ezagunak bere arpegia egin du. Oso ongi gaiñera.

Urtain-zale aundi baten aginduz egiten ari da. Prantzitarra izan bera, ordea, eta bukatu orduko eraman nai duala adierazi omen du.

Ikusi nai dutenak bijuaz lenbailen Barrena'nea.

Zoazkit, etzera damutuko ta.

Garizuma.—Oi dan bezelako elizkoitasunez ospatuko degu. Izango diran elizkizun bereziak iragartzen ari dira. Ba-dago aukera.

Gu urteero bezela, euskerazkoetara joango gera. «Andre Mari» eleizan aurten ere Aita Zubiaga jesuitak egingo dizkigula jakin det. Asko poztu naiz. Epaillaren 12'tik 19'ra, goiz, arratsalde eta illunabar, izango dira itzaldiak.

Zorionez, ez dira erdaldunak bakarrik gurera etorriak. Azken urte abetan, batez ere, napar euskaldun jator ugari etorri da, Irun'a. Baita Gipuzkoa'ko beste erri askoetatikan ere. Oien seme-alabak irundar jator izango ditugu. Gurean, bada, euskaldun asko ta asko da, uste dan baiño geiago. Garizumako eleizkizunak lirake alkar ezagutu al izateko eta alkar pixkortzeko berebizikuak.

«Jostallu».—Izeneko bazkunak ogei-ta-bi urte bete ditu. Emendik irura, «Zillarrezko Eztayak». Jai aundiak izan dituzte. Txalogarri beartsuei eskeñi dioten bazkari ederra. Zorionak, «Jostallutarrak».

XOXO-BELTX

BASAURI



Urteurrena.—Aurretik izentaute egon zan egunean, Otsailla'ren 12'gnean, Artiñano eta Ormaetxe'tar Jon zanaren gogo alde, meza bat ospatu zan, ildako lenengo urteurrena zala-ta. Jaupa ori, adizkiderik urrenekoak antolatua izan da, gu be AGUR'en bitartez otoitz bero baten beragaz batuten gara, abertzale zintzo ta adizkide on izan genduan orregaz. Goyan Bego.

Ajedrez.—Poztasun aundia izan da guretzat Basauri'ko Abesbatza (La Coral) Bizkai'ko txapeldun urtetean. Orain Españia'ko txapelketa jokatuten diardue ta zorioneko asi dirala esan legike, lenengo jokaldian Gipuzkoa'ko beasaindarrei irabazi dautse-ta. Orreikaz izan daben ondorenagatik, irabazten iraungo dabela uste dogu. Zaletasun aundia sumatzen da azken aldian Abesbatzean, batezbere gazteen artean, joko gaitz ortarako, ba'litzake jokolari on batzuk sortutzea aurrerantzean. Orretara izango al'da.

Ertia.—Ibarrola'tar Agustin margolaria, ezaguna da alderdi guztietan, Laterri guztian eban gintzake ta, Basauri'koa dan ezkeroz, benetan goralgarri yaku. Azken aldian, Bizkai'ko toki askotan ipiñi ditu bere laukiak eta, garaipen andiak eritsi batez bere Barakaldo'n izan zan erakusketan.

Laster barru, Donosti'ra joango ei-da bere lauki ta egintzakaz, eta gero, pozgarri andia izango litzake guretzat, basauritarrontzat, errian aurkestuko ba'leukez bere lan eritsuok ta gozatu danok ertilari onen lanak. Ibarrola ta bere laukiak errian ikusteko zorirrik izango ete-dogu?

Agate deuna.—Urterik-urtera, galduaz doyala esan legike antziñako oitura bikaiñ au; Agate Deuna'ri abestutea, gure errian. Aurten abestalde bat baiño ez dogu ikusi Bidebieta alderdi guztian, bera Ariz aldean sortua, erdi adiñeko gizonkaz antolatutakoa, leenago beste talderik asko urtetan ba'ziran, non dira neska-mutil gazteak? Oraindik ez dira urte asko eusko oiturazko jantziz apaindutа neska-mutillez osotutako ainbat talde urteten zirala auzorik-auzo ta txaiderik-txaide guztiok alaituaz euren abesti ederrakaz. Egun aretan ez-egoan mailladi edo eskillararik zetan igon, leyoak igirita edo ate-aurreetan itxaroten ebelako txindia eskuan ebela; gaur ez da iñor gogoratuten, edo ez dabe gogoratu nai izaten, zergaitik?

Ostera San Migel aldean beste gauzarik da; esan egike zaletasun geiago dagola gure oitura goralgarrientzako. Bertan, neska-mutillez antolatutako talde eder bat urten zan auzune ta basetxerik-basetxe, bazter guztietara poza ta alaitasuna eroanaz. Beste umetxu pozpolin talde bat erri-barrua zear, au da, Elexalde, Abaroa ta abar, abestuaz ipiñi eben. Aurrera Mikel Deun'eko neska-mutiko ta gaztedia! Erria egiteko era asko dagoz-ta.

«Edurre».—Alkarte onetako bazkide batzuk esnatu dira, ta talde osoa itxartu dabe. Aspaldian ez eban, ezer onik beintzat, egiten, beste talde askotan jazoten dan lez; gitxi batzuk bakarrik zerbait egiteko; asko akatzak aurkitseko, ta mordoa egindako apurra eurak lenengo gozatuteko. Orain, bazkide guztiok eta adizkideak okerrak ordaindu bearrean aurkitzen gara. Ona lenengoa, ia gertuta egoan euskal-jaia galezaroa izan da. Aurrerantzean, uste dogu, zori obea izango dabela. Aurrera «Edurreko» gazteak!

Kirolak.—Irauretxeta'ko Jolaslekua aurrera doa. Basauri'ko Eiza ta Arraintza bazkuneko lendakari dan Basabe'tar Josēba-Erramun txit ameslari dago asmo onekin. Lenengo amaituko dana tiro-tokia izango da, ta laster batzartokia bere bai, orain iñoren etxean batzen dira-ta. Ta laster, bai laster, igeritegi, pelota-toki ta abar ikusiko ei-doguz amaituta.

Baskonia ostikoketa taldeak erria bere atzean darabil; talde umil onek egin al izan dabena, gitxik uste eben egin leikeanik. Orain bere atezain dan Etxebarria Atletik'ak bereganatu barri dau. Ba-dirudi gure auzo au Bizkai'ko ostikolari arrobi izatera etorri dala.

Eriotza.—Otsaillaren 19'an emen il zan Munduate'tar Jon-Joseba, 26 urtedun gizon gaztea. Beste adizkide on, zintzo ta errizale jartor bat joan yaku, bere emazte gazte liraiña zeindun geratu dala. Erri guztia mindu da, benetan; danen adizkide zan, «Auspoak» taldeko txistulari gaiñera. Otoiz bero bat irakurle anai onen gogo alde. G. B.

KOLDO

ZEANURI

GURE ALKARTEKO BARRI.—Ixidor Deunaren eleizatxoko garbitzaillea bere ba-gara, zapatu guztietan egiten dogu ba lan ori. Agate Deunaren eguna zala-ta, azkari bat egin gendun eta guztiz pozik alkartu giñan umore onenagaz: Euskal-abestiz; Euskera utsean mintzatzen... Kantune'ko Nikasia'k sukaldekoa gertatu eban; ona da gero bera, gauzak ondo ta gozo jartzen dakiana. Olabarri'ko Luzia'k baserriko egia, ederra ta mamintsua egin euskun. Gure zorionak, eta eskerrak biotzez andra zintzo ta trebe onei. AGUR'en irakurleak bere ba-dira-ta.

BASERRIETAKO BARRI.—Erri oneitan, oraindik bere, neguan txarriak ilteko oiturea dago auzo oneitako txarri-iltzailleari, ori dala-ta, zertxobait etortzen yako; arazo aundiak ditu ba beronek, ta tzarto ibilli bearra bere jazo yako, eutsitzailleak indargeak izaten diralako iñoiz.

Mendi zalea bere ba-dogu; manzanillea batzen eta, eiztari trebea gaiñera, aurten ainbat bazurde il ei-douz. Erriko agintarietan bere, tarteko dogu, ta jardun giñan arazo oneitzaz. Gauza asko ei-doaz egiten: ontaren inguruan argi barriak jarri; baserrietara bidezabalak egin eta argiak ipiñi, ta abar.

Guk, ostera, Alkiber'ko potzu orrenak esan gentsozan: ori egiten dabilzan kanbioieri ardurea artzeko, umak jausi egiten yaukeezalako. Ta erantzuna: ori ez dala erriko egintarien ardurea.

Parkatu, baiña norena ete-da ba; neskazarrena?

GORBEITARRA

BARRIAK

Arratia

Mendiak edurrez, sakonetan ura ta euria, txitxiburduntzi ta koipetsuetarako aro egokia. Txarririk loditu ta gizendu ez dogunak baiña, ez txitxirik ez burduntzirik eta koipetsu berorik bere ez.

Eta zerbait egiñez igande-jaia emoteko emen izan naz etxeko epelean irakurgaiak irakurriz, zeozer ikasiz, «batasuna» ren landa pitxitxuan doguzan mueta guztietako negu-maillukiak —elduko ez diranak— batu ta pillotuten. Emen doguz bada, irakurle, bateratu eziñik, alkarikus eta bizi-eziñak jota agertuten diran itzik asko:

«Juztizia ta gutizia.—Zen eta zan.—Entzegu, ensayo ta proba.—Klaritatea ta argia.—Fin, azken eta terminala.—Suzedio zan eta jazo zan.—Batean eta batetan. Aproposa ta egokia.—Astapena, hasera ta hasiera.—Memento ta momento.—Hori ta ori.—Honek eta onek.—Baina ta baiña.—Sobera ta sobra.—Organizatu ta muntatu.—Bilatu ta billatu. Bulego ta opiziña.—Deputatu ta diputadu.—Herria ta erria.—Mogimendu ta mobimendu.—Gerla ta gerra... abar eta abar».

Eta orain, itz bi ta geiagogaz egiñak diran zatiak bere emen doguzan ezkero, aspirinak iruntsi ta jo aurrera:

«Alfabetatze kanpaina muntatuaren problemarik importanteenak prestigioa eta ponentzia propiaok dire.—Liburu alegerearen autore sonatuak.—Kualifikazio estimatua.—Fineziaren fase finkatuan manu egin eta maneatu.—Manera modernoaren faktoreak, propozioak eta fortuna positiboak».

Eta nik orain, «Galiziano»ren eta bere adizkide kutunen eskubideak nireganatuz eta euskal irakurleei parka eskatuz, otoi egin bear izartegira begiak jasoz: Todopoderoso Omnipotenteak eta Birgina Madrea'k libro ta salbo begie, eusko sabiduriaren hijo predilekto agertzen diranek internazionalituriko euskera errukagarri HAU.

LANDAJUELA'TAR A.

Usansolo

Kristau ikasbideko umezaintza

Igaro dan illeko idazkiari jarraituaz, arlo onetan egin diran lanak agertu, daiguzan. Dakizuen lez, Eziketako Miniteriora joateko gogoa geunkan, baiña ain erreza ez dalakoan gagoz. Alan eta guztiz be, ez goaz buruera ori alde batera itxiten, naita une onetan bide argirik ikusi ez. Jaungoikoa lagun dala, laiñoak zabalduko dira, ta orain ez ba'da, ate ori joteko aldia etorriko yaku.

Ludi onetan bide batetik lortu ezin dana, beste batetik egiten da, gogo ona izan ezkero. Ta gogo ona neurri barik daukagunez, arlo bardiñean baiña beste bide batetik gabiltz orain.

Ainbat toki ikusiaz ondoren, alkar-aitze edo kontrato bat egitera goaz, egokiena arkitu dogun etxeagaz. Neurri aundikoa ez da, baiña lenengo urte bietarako naiko izango dala uste dogu. Zeregin batzuk ba-dagoz, baiña, emendik ude-goienera beteko dira, zeozer ba'gara.

Ordainketa aldetik, lenengo urte-saria ba-daukagu, euskaldun batzuen eskar-onez.

Aukeratuta dagoz buru izango diranak be, ta jardun gogorrean dabiz umezaintza onetan izango diran araudi edo estatutuak gertatzen. Idazki au argetu orduko, lan geienak egiñak izango dira arlo onetan, euren eskuetan baimenak arturik, ta umezaintzako giltza sakelean daukeela.

—Orduan, dana eginda dago?

—Ez, eta une garrantzitsuena etorteko da.

—Zenbat aurtxo etorriko dira?

—Amar bat ba-daukaguz, baiña ogetamar bear umezaintza au ezer izango ba'da.

Ba-dago ba zeregin naikoa. Usansolo ta Labeaga'ko AGUR irakurleok, zabaldu egizue albiste au ainbat ariñen, euskaldun gurasoak jakin dagien, eurak izango dirala umezaintza oneri aurrerabidea emon bear dautseenak.

Itxaropen aundienagaz.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Galdakano

Etxegintza.—*Azkenengo amabi edo amalau urte onetan ainbat etxe barri egin da Galdakano'n ta gogotsu diardue orain be geyago egiten. Batzuk, egiñaz batera, biztalez betetan dira baiña ez beste batzuk ain laster; euron salneurria garestiegia dalakoedo, ez dago ba, aldi ontan, irureun anei (milla) lauerlekotik berako bizilekurik errian, bizileku kazkarren bat ez ba'da beintzat; orain egiten diranak danak, irureun ta berrogei ta amar, laureun, bosteun millà ta geyakoak dira; ogei ta bost ogerleko irabazten dabezan langille nekatuak erosteko erakoak, bai orixe!*

Galdakano'n, zorionez txiro-txirorik ez da atzerritik etorri barri diranen batzuk izan ezik, baiña, jori edo aberats asko bez, erdiz-erdizkoa da geyenbat gure errikidea, milloi erditik gorako etxeak erosteko ez aberatsegiak be.

Danok dakigun lez, gauza guztiak garestitu dira ta, ez da etxe-gintzea be garestitua ikustea arritzekoa, zerbait bearrezkoa be izango dabe bearbada, txindia arrisgutzen dabenak bere muzkiña be bear dau-ta, baiña, bere neurrian ta ez norberak nai daben eran. Batzuentzaz orretara dala esan leikelako aldi ontan. Beste gauza askotan lez, etxe-gintzailleentzat be ez dagola neurririk esan legike, irabazketan esan nai dogu, ba, Galdakao'n berton ikusten doguz etxe mordo bat, eun edo bizileku geyago egindako batzuk, eurentzat etxe apaiñak, «txaletak» egin ondoren etxehintzari itxi-ta irabazi dabezan ogerleko ederrakaz «bapo» biziten ta, beste batzuk be, laster beste ainbeste egiteko gogoaz, guraiñe txindi sakeleratu dabelako-edo. Etxegintzaz esan dakoa beste saleroste askogaitik be, esan geinke, baiña, zertarako geyago?

Eriotzak.—*Otsaillaren lenengo egunetan Jugo' tar Jon gizon langillea ta kementsua il zan, irurogei ta amazazpi urtedun zala. Orain berrogei ta amasei urte Elexalde (gaur Galdakano) kirol bazkuna sortu zanean, ta geroago, urte asko geroago, jakiña, Españi'ko ostikolari artean «nternazional» izan zan Jugo'tar Jon'en aita. Beraz, irakurle kiroldarra, otoi bat Jon euskaltzalearen alde. Goyan Bego adizkide ona.*

Baita il orren 7'gn Elexalde'ko auzunean, Barandika'tar Jakinde, Jauregi'tar Bittor'en alargun zintzoa, il zan, irurogei ta amabost urtedun zala. G. B. emakume jatorra.

Otsail onek beste adizkide batzuk be eruan dauskuz; illaren 12'gn Elezkano'tar Jone andereiño argia, Bengoetxe'n ain ezagüna zana, irurogei ta bederatzi urtedun zala. Urrengo egunean, 13'gn, Garai'tar Kostandin irurogei ta bi urtedun zala il zan. Ikusten dan lez, errizale mordoa eroan dauskue betiko, gurartetik. Goyan Begoz adizkide guzti orreik.

Bedia'n.—*Eriotzak leku guztietan izaten dira ta, auzo-erri ortan be euskeltzale zintzo bat eroan euskun Jainkoak, Urtarrillaren azkenengo egunean Letoma'tar Miren-Karmele, Atutxa'tar Martin'en emazte gazte zintzo argia. Goyan Bego bera be.*

Agate deuna.—*Beste erri askotan lez, gure erri ontan ainbat abestalde urten ziran txaideak zear Agate Deuna'ren omenezko abesti txukun maitekorrak abesten, baiña, ezetariko zalantza barik abestalder.k aparñena; ondoen antolatukoa, bertoko Abesbatza ta Euskal-Ikastolaren artean gertutakoa izan zan. Pozez entzun genduzan orrein ta beste taldeen abesti goxoak. Aurrera neska-mutillak! Eutsi geure oitura garbi goralgarrieri!*

Mingarria.—*Mingarria il bearra, baiña gazteak ezbearrez ilbearra benetan mingarri. Otsail onen 20'gnean, emendik Zornotza'ra bidean, Kortederra auzoan laprast egin eta beste batejkin alkar jota, lau gaztetik bi il ziran bebil barruan:*

Ta gazte orrein eriotzak emon euskun miña bizi-bizi gendula, ara nun il orren 22'gnean, ainbat egun gaixorik izan ondoren, Ereño'tar Juste andera ta auzokide ona il dan. Larrea'tar Sabin («S. Larrea) euskal idalzearen ama maitea, irurogei ta amairu urtedun zala. Urtzi deunak bere magalean betiko izango al-dau emakume baketsua. Laguntzen dautsegu Sabin adizkide zintzoari ta beste sendikieri, aldi samin onetan.

Laguntzak.—*Andra-Mari taldekoak jai eder bat gertatuten ei-dabiz, ta ez edozelakoa: abeslari ereslari, dantzari gorenengoak. Txindirik irabazten ba'da, Ikastolaren alde izango ete-da? Ez dakigu, dantza talde jator ori be txindi bear andian aurkitzen da-ta. Ez litzake baiña, gaizki etorriko beste euskel jai bat Ikastolearen alde, onek be laguntasuna bear dau, ta erritarrok emon bear, iñork emongo ba'dautso. Ea gazteak, egin zuek bere zeuen alegiña, ea danon artean zerbait egiten dogun geure-geurea dogun jakintza arlo onetan.*

Txangoak.—*Or dabil Ganguren mendizale taldea be mendietarako ibillaldiak eratzen. Doazanak bere geroago ta geiago dira, bai berebil aundi edo txikerretan. Jakingarri eta ikusgarri diran tokietara bere egin dira, baiña sarritan asti gitxiren barruan, eta epe naikorik ez danori ondo ausnartzeko. Ea beste idazlantxo baten, astitsuago ta sakonago artertzen dogun arazo au.*

BASA-JAUN

Euskal erriko gizon ospetsuak

isidro ansorena

Gaba da. Amarrak laurden gutxi ain zuzen. Kalean otz egiten du, Aize gogorraren indarrak berriz, txistu larri eta bildurgarri bat jotzen du. Egia esateko, ez da jende askorik ikusten kaletan.

San Bartolome deritzaion karrikan, irurogei ta emeretzigarren numeroa markatzen dun etxean, bizi da gure txistulari sonatua.

Etxeko gela batean, ni etorri zai zegon Isidro. Biok agurtu ondorren, ekin diogu gure alkar-izketari.

R.—Nun jaioa zaitugu Isidro.

I.—Secundino Martinez de Lecea, Villafranca Ordizi'koa, Julian Duran, donostiarra, Luis Castañeda, danborreroa, au ere donostiarra, eta azkenik ni. Castañeda ordea, bereala il zitzaigun, eta beraren ordez, Errenderi'ko Evastisto Goñi sartu zen.

R.—Leen esan didazu Donosti'an egiten zenituztela eginkizunak. Donosti'tik kanpo nun agertu izan zerate?

I.—Euskalerri guztiari bira eman diogu, esate baterako, Bilbo, Iruña, Gazteiz, Gero Madrid'en, Barcelona'n, atzerrian ere azaldu gera. Paris, Londres... Donosti'ko abesbatzarekin ere alkarturik, eman izan oi ditugu konziertoak.



Ezkerretik: Bonifacio Laskurain, txistularien aitona, Gonzalez Bastida, A. Hilario Estella'koa, Jose Olaizola, eta ISIDRO ANSORENA.

I.—Ernani'n jaioa naiz. Datorren maiatzean egingo ditu larogei urte, lenengo aldiz ludi ontako argia ikusi nuana.

R.—Noiztik datorkizu xistua jotzeko zaletasun ori?

I.—Amazazpi urte nituela gutxi gorabera. Ernani'ko txistulari bandako opozizioak izan ziren, eta nik irabazi nitun delako opozizioak. Epai maiakoak, beste batzun artean, Jose Olaizola ta Teodoro Erauskin izan ziren. Denbora aietan, urteko bosteun pezeta irabazten gendun txistua jotzeagaitik. Orduen, inguruko txistulari on eta sonatuena, Tolosa'ko Estanislao Gorrotxategi zen.

R.—Nor izan zen zure lenengo maisua?

I.—Manuel Zendoya, ernaniarra, organista izanik, akademia bat zun gure errian, beraz, bertara joaten nintzan solfeoa eta abar, ikastera. Baita ere, Zendoya, Donosti'ko Academia de Bellas Artes'en irakasle bezela zegon.

R.—Zure sendian, aurrezko, izan al dira txistu zaletasuna senditu dutenik?

I.—Nere aitak etzun txisturik jotzen, berak ordea, egiten zitun txistuak. Bere iru anaiak txistulariak ziren. Bat Errenderi'n bizi zen, eta beste biak, Castro Urdiales eta Valmaseda'n. Nere anai bat ere txistularia zen. Ernani'ko bandan jotzen zuena. Len aipatu dizuten bezela, nere aitak, txistuak egiten zitun; gaur egun, nik berak orain dela irurogei urte egindako txistu batekin jotzen dut.

R.—Ernani'tik Donosti'ra etorri ziñan, nola izan zen onerako etorrera ori.

I.—Ernani'ko bandan, amabi urte igaro nintun, au da, milla betzireun ta ogeita bigarren urteraiño. Donosti'an, bertako bandan sartzeko, opozizioak ziren, beraz ni agertu nintzan, eta oiek irabazi ondoren asi nintzan emengo bandakin txistua jotzen, urte artatik, lengo urte bitarte, aritu naiz jo ta ke.

R.—Delako banda orrekin, ze moduko eginkizunari jarraitzen zenioten, konziertoak, dantza saioak...

I.—Igandetan goizero, Donosti'ko parte zaarean, kale guztieri bira ematen genion, jendea alaitzeko asmoz. Gero eguardian, amabiak inguruan, konzierto gisa eskeintzen gendun 18 de Julio'ko emparantzan. Baita ere, emparantza bertan igande arratsaldetan dantza saioa eskeintzen gendun.

R.—Nortzuk ziñaten garai aietan banda osatzen zendutenak.

Gu Donosti'an asi giñan, parte zaarreko alkarte edo soziedadetan, eta kaletan basterrak alaitzen. Esan nezake orduan jaio zirela, gogo biziz, dantza libreko txapelketak.

R.—Konserbatorioan berriz, irakasle izan zera. Noiz asi ziñan bertan, txistuaren lezioak ematen?

I.—Orain dela ogei urte inguru izango zan. lenengo aldiz asi nintzala, bertara etorri zaizkit Gipuzkoa guztitik txistua ikastera. Lengo urtean bertan, berreun bat ikasle izango nintun, naiz denak ez jarraitu. Izan ere nigana etortzen diranak, geienak estudianteak dira, eta orduakin bat etortzea benetan zailla izaten da.

R.—Gaur egun, txistulari sonatuenak beraz, zure eskuetatik pasiak izango dira noski.

I.—Bai, nerekin ibilliak dira: Lezo'ko Polentzi Gezala, Errenderi'ko Lizaso, Antonio Arozena oyartzuarra ta abar...

R.—Zuk ere txistuak egin izan oi dituzu ez da ala?

I.—Alaxe da, asko egin gaiñera, Ameriketarako ere bidali izan oi ditut nik egindako batzuk.

R.—Abestirik moldatu al dezu. Zenbat?

I.—Berreun bat partitura txistuarentzako moldatu ditut, eta orretaz kanpo abesti batzuk ere konpundo.

R.—Txapelketarik irabazi al dezu?

I.—Zailla zait esatea nun eta zenbat izan diren, baiñan nik uste gutxi gorabera amar edo amabi izan direla.

R.—Besterik...

I.—Lengo egunean, Lopetegi eskultorea izan zen etxean, nunbait busto bat egin nai didate, museo edo saloi batean ipintzeko, Berrogei ta amar urte igaro bai ditut Donosti'ko bandan.

Berrogei ta amar urte Donosti'an, amabi berriz Ernari'n. Danera jota, irurogei urte izan oi dira Isidro'k txistuari eskeiñi dizkonak. Eta gaur egunean oraindik, larogei urtekin, erakusten jarraitzen du. Orrelako gizonak, zerbait meresi duela uste det.

Nere errespeto eta zorionik beroenak opa dizkizut Isidro.

RAMON ZAPIRAIN

Filolojiazko jardunak III

POMPEU FABRA ta L'AVENC

1.884'garren urtean Pompeu gazteak 16 urte zituan eta artean ezer gutxi entzun zuan katalan-literaturari buruz. Ez zekian Bofarull egoskorra bazanik ere ta gutxiago oraindik «Bonnes Lettres» zeritzan Akademia'ren berri. Berez izaki, ordea gure gaztea burutsu ta ontatik sortu zitzaion Gramatikarenganako joera. Etxean mintzatzen zuten katalanera nolakoa zan arduratzen asi zan, uste gabean. Gurasoek, seme maiteak batxillergoa bukatu ala ta matematiketarako zeukan zaletasuna ikusirik injeniero izatera bultza zuten. Aren ezkon,anai Gali ere iritzi ortakoa zan. Mutilla udara artan Camprondon errixkara joan zan eta matematika alde batera utzirik oporraldia katalan itz eta esaerak biltzen igaro zuan... payes-artean.

Universidadean sartutakoan lenengo adiskidetako bat gero arkitekto ta politikari ezaguna Puig i Caldafach izan zan. Pompeu ikasle ona artze errezekoa zanezkero kursoak eroso aurrera eman zituan. Alabaiñan, injeniero-ikasketak baiño maiteago zuan katalan izkuntzaren arazoa. Onek ematen zion kezka. Zientziazko ikaskizunak ez zuten larregi arduratzen. Otz eta motz zetorzkion. Berotasuna beste nunbait piztu zitzaion. Lengoaz gaiñera arras adiskide egin zan Cortada eta Daniel Calvet olerkariarekin. Au dibujo-erakusle bezin katalanzale ikasia zan. Onek Pompeu'ren zaletasuna aurki ezagutu zuan eta baita jakin ere Katalan-gramatika bat egin nairik zebillela. Calvet maisuak, zeatz-meatz adierazi zizkion aldi artan katalan-izkuntzaren inguruan sortu ziran eztabaida ta oztopoak, ortografia, zala, ta beste ezberdintasun zenbaitez.

Pompeu'k gogoan artu zituan eta 1.885/1.886 ikastarorako bere Gramatika amaiturik zeukan, baiñan ez gogoa ase betetzen.

Urrengo urteetan berriro lanari ekin zion eta Calvet maisuaren aolkua jakin naiez maiz joaten zitzaion agur egitera. Au, zoritxarrez laister il zan Pompeu samintasunean utzirik. 1.891 urtea zan eta ain zuzen gure ikasle gaztea beste lagun batzuekin L'Avenc *aldizkarian zerbait argitaratzen asi zan garaia.*

Otsaundiko Mila i Fontanals ez zuan oraindik ezagutzen baiñan ez zuan ibilli nai ark emandako gaztelaniazko Gramatikaren bidetatik. Pompue katalan-mintzatuaren aldekoa zan, bai, baiñan gaztelakerietetik garbitua. Ez zituan onartzen katalaneraz erabilli oi zituzten: «bochorno, adelanto, género, dulsura» *eta antzeko erderakadak gaztelaiatik artuak.*

Tokiko izenak, erdel-kutsu gabeak, gureak lenago arrotzak baiño, zion. Mila i Fontanals ez ba'zuan gogoko, Fabra gaztea Bofarull zaarraren aurka ere jeki zan, batik bat aditz-jokuan. Onek arkaismo ta zarkitu era asko zerabilzkian eta Pompeu oraingotasunaren billa zebillen.

Ortografian, berriz «Akademia de Bonnes Lettres» *dalakoak erabilli oi zuana onesten zuan, baiñan ez zeatz eta estu, bear zanean amore emanez baizik. Gai ontan zabala ta iritzi idikikoa zan; ez batere burutberokoa.*

Ordurako Injeniero karrera utzirik, «makiña-soñuak ez zitzaizkiolako atsegin» Kimika aukeratu zuan au isillagoa bait zan!

Ortan zegola bere bizitzako gertakari goibelena ezagutu zuan: aita zanaren eriotza 1.888'garren urtean. Galera mingarria famila guziarentzat. Pompeu'k biotz zirrada aundia izan zuan eta lagunarte ta billeretara joateari utzi zion. Al zuanean mendi ta kanpo aldera irtetzen zan, Camprodon'era geienik erriko jende xet, payes eta nekazariekin mintzatu ta bizitzera. Egun aietan Cassas Carbo'ren adiskide egin zan. Au ere gramatikaria eta katalan-izkuntzaren gaietan iritzi berdiñekoa. Eskuartean zerabilkian zorioneko «Gramatika-Saiakera» erakutsi zion, noski, eta bien artean lan onuragarria egin zezatekeala «L'Avenc *aldizkariaren bitartez».*

Tresna egokia zuten orretarako Jaume Masso adiskidea jabe zalarik, argitaratzen jarraitzeko oztopo eta eragozpenak izan ez ba'litu. Gelditu bearrean arkitu zan eta ez zan berriro asi 1.889 urte arteraiño. Ordukoa da Pompeu'k argitarazi zuan lana: «La Rutina del Catalán escrito» *deritzana. Idazkera kontuan ez du iñor erasotzen. Katalanera erderakadaz betea da damu duan gauza bakarra. (Castellanización del idiona catalán). Garbizale zan, noski, baiñan izkuntza idatzia mintzatzen zanarengandik urrutiratu gabe. Bein eta berriz Bofarull eta Pallissa zirikatuagatik auek ez zuten alkarrizketako irrikarik.* «L'Avenc» *tarrok ekin ioten berriro eta Mila i Fontanal'ek onela erantzun zien:* «*Que cada cual escriba la variedad del catalán que mejor sienta*» *1.891 urte artan berean, Pompeu Fabra'k argitaratu zuan ain kutuna zuan liburua:* «Ensayo de Gramatica del catalán moderno».

L'Avenc'*eko adiskideak arrera beroa egin ziotela ez dago esan bearrik.* «L'Esquella de la Torraxa» *astekariak ere lan baliotsu ta argia zala aitortu zuan. Beste paper geienak, ordea isillik gelditu ziran eta* L'Avenc'*ko gazte sutsuek oztasun ura frakasotzat artu zuten. Lur jota, ez ziran errez altxa erori aldilik. Etsai askotxo agertu zitzaizkien Carreras Gandi, Rubio i Lluch tradizioaren izenean.*

Fabra kimiko karrera egiña zuan ordurako ta dirua irabazteko bearrean arkitzen zan. Ogi-bidea Hellin'go meatz batzuetan eskeñi zioten eta naiz gogo gutxiz ara joateko itza eman zuan. Abitzeko zorian zegoala Puig i Caldafach aspaldiko adiskideak Bartzelona'n geldi arazi zuan. Oni eskerrak Pompeu'k egin zuan, bertan goxo! Bestenaz, kaxio moiel! aren katalan izkuntzaren aldeko lanak baztertu bearra izango zukean aldi luze batean...

ANTONIO M.ª LABAYEN

TITO MOZORRORIK GABE (II)

Errusi'ko Zar aiengandik jaso zuten boltxebikeak erri txikien arazoa; Ain zuzen, 130 aberri eta etnia taldeak. USA'n beltzen arazoa ainbatekoa izango omen da URRS'en auxe. Krimea'n, Ukrania'n, tartaroak eta beste batzuek euren eskubideen alde altxa dira, manifestazio zaratatsuak egin dituzte. Espetxeetan dauden «preso politikoak», URRS'en alegia, erdiak «burges-nazionalistak dirala kalkulatu da». Bestaldetik, Errusitar Aundiak, lenengoz ixtorian, zentzoan gutxienak izatera etorri omen dira-ta, azterketa sakon bat egiten ari dira milloi erdi bat burokrata komunistak.

Tito'ren Yugoslabia'n ere arazo berdiña azaleratu da. Zazpi bat nazionalidade ditu: kroatak, montenegrinoak, makedoniatarrak, Ksovo-Metohipa'ko serbioak, eta abar.

Erri sozialistetan ere ez dira gauzak nai bezela irtetzen. Izenez autonomia ba-dute, baiñan ez zaiete erri txikiei ematen eskatutako garia. Azkatasun gosea ixillik gorde leike luzaroan, baiñan azkenik oien txinpartak argitzen dituzte bazterrak eta sioñak sumindu eta erre.

Aldizkarientzat emandako zigor-aginduaz jakin genuan lenengoz. Bai zigortuak izan ere geroxeago ikasleen izparringi bat eta Sarajevo'ko beste aldizkari bat. Geroxeago oraindik, kroaten eguneroko bat debekatzen zan.

Kroazia'n, batez ere, abertzaletasuna indartsu azaltzen da. Zenbait erri agintarietan ere itsatsia nabaitu. Mugimendu onek eraginda, Komunista Batzorde Nagusiak, batzorde berezi bat izendatzen du. Azter ditzala eta arkitu ditzala Kroazia'n abertzaletasuna erein eta sartu dutenak, erresponsableak, alegia.

Tito'ren ertzaiñak, etxe miaketa batean, Kroazia'ko Zagreb iriburuan dagoan ikasle-etxe batean, 6 pistola, munizioak eta abertzale zabalkunde orriak arkitzen dituzte. Abertzaleeri erasoa onekin asten da.

Eundaka gizaki espetxeratzen dituzte, «burges-nazionalistak» dirala esanaz. Baiñan iñori izengoitiak ipiñirik arazoak ez diralako zuzentzen, baizik utsuneak, gaitzak, griñak eta gogorkeriak adierazi, Ksovo-Metohija'ko abertzaleak ere, kroatena jakiñik, ixkanbillak sortzen dituzte autonomia aunditu eta obeagotu dedin eskean deardaka kale erdian, eta al duten ixilka lanean P. C. barruan ere.

Eta une onetan Tito'k itzegiten du, eta bai esan: «Gobernuaren etsaien eraginak menderatzeko bear baldin ba'dira gudarozteak, erabilliko ditugu». Eta, emendik egun batzuetara Yugoslabia Gudarozte Sorketaren XXX urtean, militarrei egiñikako itzaldian, antzeko au: «Arazoa txartuko da beldurrik ez degu, baiñan orrelakoren baterako or daude gudarozteak».

Eta kalean batzuek «chauvinistak» eta besteak «nazionalistak» alkarri deadarreka esaka diarduten bitartean, Tito'k abertzaleak kaltetako egintzetan diardu. Oraingo ontan intelektualen aurka jokatzen du. Matica Ervatske Yakintza Bazkun'eko amabi zuzendariak lotzen ditu preso. Tito'k iñork uste ez zuan orrelako urrats txarra emanik nazionarteko azterlari eta pentsalari askoei esan arazten die: Belgrado'ko «sozialisten liberalismoa» porrot egin eta bere izena betiko laztuta gelditzen dala.

Arazoa gaiztotu egiten da gogorkeri onetaz; «Artutako neurriak —dio Tito'k— ez dira gizakiengatik, baizik politika berengatik» (politika, gizakiak osatuko ez ba'luteke bezela). Agintarien eta P. C.'ko esanetara, kriminal arrunta batzuek besterik ez dira espetxeratuak. Beraz, Yugoslabia'n «eriotz zigorra» legeetan onartu dagoalarik ez litzake batere arritzeko izango kroaten abaertzaleren bat iltzea.

Lenin'ek esan zuanari bere ikasle Tito'k egiten duana loturik, auxe pentsa genezake ez dakitela nazio-artekotasuna erabiltzen marxismo erria ere ez dala paraiso erria eta burokrata-sozialista-burgesei bost ajola zaitela egitazko langille erria ankazpiratzea. Eta Tito'k ez dituala «protestalariak» nai.

Guztia zeru eta «nazionalista-burgesak» omen... sozialista errietan? Komenentziñik itxu ez dagoanarentzat ikasbide ederra.

UXOLA

AGUR

III URTEA
33 ZENBAKIA

AMABOSTEROKOA
1972 - EPAILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

UDA-BARRIA DA

Jaio, azi, bizi eta il; orra or izaki egin guztiak emon bear dabezan lau oinkadak. Eta ez bakarrik bizidunak, baita bizibakoak bere.

Izadiak sorrera bat izan eban. Alan diñoe jakitunak. Eta izadi au, gaur zar egiñez doa. Geldiro-geldiro, astiro-astiro, egia da, baiña zar egiñez. Milloika urteak dirala izadia ez zan gaurkoa lakoa. Bear ba'da, oindiño gizona bera be agertu barik egoan; piztiak euren aurrera-bideetan gaur baiño atzeragoko mailletan egozan... Eguzkia bera be zar egiñez doala diñoe, eta ba leiteke milloiak igarotakoan bere berotasuna lurreko izakiai bizia emoteko bestekoa ez izatea.

Eta izadi, au, lurrekoa beintzat, berbiztuko ete da? Nork jakin gaur lurrean dogun antzeko bizia, gero beste izar-arteren baten izango dan ala ez.

* * *

Egunak berak be ba ditu aldi orreik. Goiza jaiotza antzera, eguerdia eldu-aro antzera, arratsaldea zartzaro lez eta gaba, eriotzea.

Baiña egunak berbizkunde bat ba dau. Gaba igaro egiten da eta bere sasoean barriro eguzkia dizdiratsu agertu. Egun barria da, ez berbiztua. Baiña egunaren eriotzea itxaropentsua izaten da beti.

Urteak be jaio, azi, bizi ta il egiten dira. Laster datorku uda barria, urtearen ume-aroa, bere lora margotsuakaz, bere zugatz eta zelai orlegiz jantzita... Gero, eldu-aroa, udea, ta zartzaroa, arnariz ornidutako udazkena eta, eriotza lez, negu gogorra.

Baiña urteak be eriotza barea dau, etorriko da barriro uda barri poza; urtea, izadia, berbiztuko da. Izakiak euren semeetan berbiztuten diran antzera.

Eta gizona? berbiztuko ete da? Bere egillearen berbeak ori diñotso: izadi barri baten, samintasunik ez, negarrik bagako izadian biziko dala. Baiña izadi onetan be, aita bere semeetan bizi dala esan geinke eta gure asabak gugan.

* * *

Eta zer esango dogu gizarteari buruz? Eta aberriai buruz?

Gizartea, kondairako gizon guztien alkartea ba'da, argi ikusten da lege orreik bete bearra. Baiña alkarte laburragoak konturaturik, lege bardiñak ikusten ditugu. Aztertu daigun aberrien kondairea.

Alde batetik, antxiñako laterri nagusi ta zarrak il ziran. Gogoratu Aigipto, Sumer, Persi, Txina, Grezia, Erroma... Euren eldu-aroa amaitu zan eta zartzaro laburra igaro ondoren, il ziran. Euren ondorengoetan, aundiago edo txikiago, bizi dira.

Baiña aberri txikiak, gure Erriaren antzekoak, giza-bizitzearen antz geiago dabe euren kondairan. Bear ba'da endatiko alkartasun bat izan dabelako.


Zein alditan ete dago gure Erria?: Ume-aroan?, Gazte-aroan?, Eldu-aroan?, ala zartzaroan?

Bera baiño gazteago izan diran erriak asko il dira, aundiak eta txikiak. Baiña berau, arerioz inguraturik egon arren, bizi da eta iñoz baiño bizi-gura geiago dau. Gure Erria iraunkorra danik ezin ukatu: milla ezkerrean eta amar milla eskuman jausi dira, baiña beronegana ez da eldu eriotzea.

Ba leiteke gure Erria zartzaroan egotea, baiña bere izaerea berbiztuko dauan ondorengoa ateetan dago. Bere izaerea geure eskuetan dogu. Aztertu daiguzan gure oitura zarrak, gure izkuntza zarra, gure diruketa zuzengabea... eta Erri barri baten zusterrak, oiñarriak, sendo ta zuzen jarri dagiguzan.

Uda barria da. Erri barria izango da.

AGUR



Egiñalak egin, izadiko lege batzuk alda-eziñak: Bizitz-barritzea ta.

EGUZKIA

Izadia on egitez mintzaldi bizian dager. Mendira nai solora, gaillurrera nai arru barrenera begiratuta izaki guztiak izketan diardue. Udabarria baiño len indarrak ilda egozan. Illun. Geldi. Zirkiñik ez zan asmetan iñundik.

Andik lasterrera udabarria agertu zan. Batzuetan euritan, beste batzuetan eguzkitan, baiña bion artean sortu dan giroa lengoa baiño atsegiñagoa da. Orain argitsuago ta epelago dago. Gorputza pozkor asmetan dogu.

Ikusten dogunak alaitu egiten gaitu argiz, eder-miñez, berotasunez. Goizaldeko eguzkia urre dirdiraz, maitasun giroz bizia eskeintzen datorkigu. Zugatzak, landarak, sasiak erne-mindu ta biztu dira edertasun barri bat eskeinduz.

Argia dabil bere margoak eta ederra izadiari ezarten. Guzurrezkoa ez da. Izadia argiaren indarrez ta beroz edertzen asi da. Soiñeko barri bat agiri da izadi guztian, lorazko jantzita. Orain eguzkia ta izadia alkar izketan dabiltzaz. Eguzkiak bere bero ona besterik ez dau emoten. Orixe agindu eutson Egilleak. Ta itxu-itxuan, orretan diardu. Ta lurra ostera, andra alargun antzera, bakarrik, naigabetsu, baiña eguzkiaren laguntza beroagaz bizia zabaltzen dabil.

Argi bedeinkatua, argi bizia, argi maitasuna aidean dizdiz ibilkeran, ta bardin lurrera sartzen danean, gizonarentzat janari ta bizi biurtzen da. Soloetako arnari barriak, zugatzetako ale gorri umauak eguzkiaren gozoa darie. Argiak itz baiño geiago egiten dau, bere bizia janari biurtuta damosku.

Eguzkiak kresalaren indarragaz barriztuten ditu soiñak itxas ertzetan, eguzkiak bere erraiñu ta aize garbiaren osasunez orbiztuten ditu gaisoetxetako lagun makalduak mendi goienetan. Eguzkira doaz gaisoak biziaren billa. Ta argia meitekorra ta ongillea da, berak al daben giñoan, beti, izadi ta gizadiari lagunduz.

Eguzkiaren argiz bizi dira lurra ta gizona. Argiari itxaroten dago lagun guztia. Langilleak udea datorrenean opor aldiak artzen ditu. Argiaren poza bear dau. Eguzkiaren dirdiraz bizkortuko dau gogoa, nekeak arindu ta gaiso erreztenak garbitu. Argiagaz dantzatzen da gizadia ta argiagaz ezkontzen da poz-giroz bizi guztia.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Euskera Batua ala Erdera Euskeratua?

Ez dala makala, ez, apaltasunean eta ixillean J. A. Montiano'k eta J. R. Urkijo'k egin daben lana; gaur-egun dagokionik-eta iztegirik ongarriena osotuaz. Pozik artu dogu, benetan; gozokiak bezin ondo salduko dala uste dogu-ta. (Urten eta lenengo iru egunetan 800 ale saldu dira. Ag.).

Aurretik argitaratutako beste iztegi guztiak aztertu ondoren, amar milla itz ditun «sakelerako» deritxon au aukeratu dabe, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n geien edo bardin erabilten diran itzak sartuta.

Iztegi au eskuratu ondoren, gauza bat agertzen da argi ta garbi: Euskera batua lortzeko ez dagola erderara larregi jo bearrik, ezta erderazko itzak erreskadan sartu bearrik be... idazten asi baiño len, euskera jatorrekoak ikastea baiño.

Iztegi onen egilleak, ez dabe ipar aldeko euskalkirik gogoan izan, baiña apalik autortzen dabenez, euskerea ego-aldean ikasi nai dabenentzat egin ei-dabe lana; ikasleentzat.

Baiña gure iritziz, ez da istegi ori ikasleentzat bakarrik, egoki-egokia deritzagu irakurleentzat eta euskera jatorriz jakinda be, idazten eta irakurten ikasi nai dauenentzat. Ta geiago esango neuke, borondate onik ba'lego; erdera guztieri ate ta leio zabaltzen diarduen idazleentzat.

Baiña «mordoillo zaletasunak» goiko maillatik dauka eredu txarra, Euskaltzaindi'tik. Ba-dakit au irakurrikeran norbaitzuk sutuko dirala, beti arrika gabiltzala esanaz, baiña gu, geure buruen jabe garan ezkero, beste batzuk egiten daben berbera egiteko eskubide osoa daukagu, giza-legea galdu barik, jakiña. Guk, Euskaltzaindia (ta ez Academia) euskerearen zaindari ikusi nai genduke, ta ez gure izkuntzea erdereagaz nastatu nai dauenen tramankulu edo kereizpetzat. Ona emen oraintsu artu dogun agiritik zerbait: «Prensa bulegoa», «emplegadu», «sistema», «prozedura» ta abar.

Eta ortik eta emendik irakurten dogun euskeran (?) ez da iztegi aldetik bakarrik erdalzalekeria agertzen, joskeran be beste orrenbeste egiten da-ta. Gero, edonun entzungo dozu: «libru onek euskera batuan egiñak dira» baiña, zein euskera batuan? Zelan esan lei ori?

Ba-dakigu, Arantzatzu'n, «begi onez ikusiko zala» esan zana, orain, ikusi egin bear dala, diñoela, baiña «an» ortografia gaiak erabilli ziran bakarrik, eta iñor beartu barik. Beraz, aditza oraindik aukeratu barik ba'dago, zelan idatzi lei euskera «batu» orretan? Aditz bako izkuntzan ala bakoitzak nai dabenarekin? Ikusten danez, «ñ» eta «ll» kendu ezkero, ta h'ak nun nai sartu, egiña ei-dago «batue».

Beste alde batetik. Ba-dakigu gogo-jardunetarako oiturea galtzen doala, garizumako giroa oztuten; orregaitik izango da prailleak ara ta ona ibiltzea, euskera batuaren edertasunak goraltzen, erritarren gogoak berotzeko-edo... Ona litzake, dana dala, garizuman besterik ez bada be, egiagaz beti baliatzea. Norberaren iritzia gaintzeko ez dago zertan guzurrik esan edo ixil-une esangarriegaz erantzuterik. Egizkoa ta onuragarria izango dan batasunera jo bear dogu danok, baiña ez gogorkeriz, eta gitxiago, euskerea ta euskaltasuna gorrotatzen diralako, erdal-itxasoan urtu naiaz.

Lenago be esana dago: telebizioa, irratia, egunerokoak eta erdal kutsuzko giroa, ez ete-dira naiko euskerea itoteko? Ez ete-ziran lenago erdal itz naiko sartu, orain guk euskerearen batasuna prantzeran eta gazteleran oiñarritzeko? Ez da arazo makala (ta ez «problema» edo prolema») itz jatorrak gordetzea! Ba-dakigu, gure artean jatortzat daukaguzan itz batzuk erderatik artuak dirala, baiña orrek ez dau esan nai orain erreskadan sartu bear doguzanik. Edo euskera batuaren ordez, euskera erderatua lortuko dogu, edo nai ba'dozu «erdera euskeratua» ta orduan, ba'leiteke Madrid'eko Academia'k gaizki egiten dogula esatea be.

Ondo-etorria ba, eta garaiz, Montiano ta Urkijo'ren iztegia. Zorionak biori ta zorionak Peña ta Etxenagusia zuzenlarieri be. Apaltasuna, jakituriaren alboan larregian izango ez ba'litzake, beste kukurruku batek joko leuke gaur euskerearen eta beste gauza askoren arloan, baiña zoritxarrez, jakintsuak ixillik dagozan bitartean, begi-bakarrok nagusi, gu lako sasi-idazle zaratatsuenak entzuten dira... h'ezko gaillurdunak baiña!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Batasunaren arazoa

Beste izkuntzetan gertatzen ez dana, gure izkuntzarekin gertatzen da. Beste errietan bertako izkuntzan mintzatzen diralako, ez dute uste izan izkuntzari buruz maixu diranak. Emen gure erri txiki ontan naikoa da, gizon batek edo bestek itzaldi bat esan, edo liburu bat edo beste irakurri, euskaralogo jakintsuak dirala pentsatzeko. Au guztia gertatzen da, ez jakiñak diralako, ez jakiña geienetan ausartia izaten bait-da. Lengo autore zarrak aipatuaz, batasuna eskeintzen digute, ta onekin batera, iraultza. Alajaiña!

Gaiñera bere idaz-lanetan, ez dituzte onartzen zenbait idazlari bikain, obeto esateko, ez dituzte gogoko. Gure izkuntzari garairik gogorrenean ainbeste indar emandako idazlariak. Arana Goiri, Azkue, Orixe, Lizardi... e. a.

Euskerari buruz alkarregaz mintzatu oi izan gera. Berriz ere gure arloan, euskeraren batasuna dala-ta, bein baiño geiagotan gai auxe aukeratu degu. Gai zabala ta aundia bait-da au, ta batasuna, ez da oraindik orain asia.

Alderdi batek, arrazoi beste alderdikoak lelengo oiña ankaperatzeko, bide berdiñak izango dituala iruditzen zaigu... Ala, gure artean ere, uztarpekeria modako jarri nai al degu.

Errizalea berez da Iraultzaillea

Gizon utsa ez da iñon bizi, giza bakoitzak bere jatorrizko erria du. Baiña abertzalea izatea zer da? Ona emen ari-muturrari nola eldu diogun! Joan zan astean Montevideo'tik nere osabak eskutitz bat idatzi zidan, eta zera diño: Alegia, euskalerrian iskanbilla, zarata, naasketa ta burruka aunitz dabillelaren zurrumurrua, bere belarrietara eldu dala. Ta Marxismo Leninismo'aren joera artu dutela. Nere osaba au, guda dala-ta iges bearra izan zuan, nora ta ameriketara! bere aberrik urrun. Dena utzi ta etxetik igesi joan bearra txastatu ta probatu ez duanak, ez daki asko zer dan gauz ona!

Ala izango da... edo izan leiteke; baiña oraintxe erantzungo dizut, euskalerrian zelango giroa dagoen: Euskaldunak erdibituta, au da; batasunaren ordez, bitasunaren zamapean gaudela egi aundia da, noski. Ta zuk diozun marxismo-leninismo'etzaz pentsatzen duten gazteak ba-dirala, zer esanik ez! ziur-aski leen baiño geiago.

Gure errian nik ezagutzen ditutenak, bat edo beste, milla ta bederatzireun eta ogetamaseian, bularra eman eta erakutsi bear zan garaian; atzea emandakoen semeak dituzu. Orduan, gure errian ori gertatzen ba'da, beste errietan beste orrenbeste gertatzea ez da arritzekoa izango noski.

Baiña, ez dago dena galdua ezta gutxiagorik ere; ez da lenengo ta azkenengoa izango. Euskalerrian, odei beltz lodiak goialdetik, eta itsaso arroa bestetik izan arren, ez gaude mundu txarrean eta baretuko dala, ez degu zalantzarik.

OSARTZU

Euskera Jalgi Adi Neurera

Bai, Euskera jalgi adi neurera. Euskera ez ba'da jalgiten neurera, ez dut egingo beti ta nun nai euskera. Karrikan egiten ba'dut euskera, etxean egingo dut erdera. Etxean egiten ba'dut, karrikan erdera. Plazan egiten ba'dut euskera, jolastegietan egingo dut erdera eta onela beste toki askotan be.

Zegaitik ez dut egin bear, benetako euskalduna ba'naiz, leku guztietan bazter guztietan euskera? Esango neuskioe, oker ez ba' nago, onexegaitik: Euskera jalgi barik dagolako neurera neure barrura, Onexegaitik egiten dut euskal-izparringia erosi bearrean erdal-izparringia erosi, euskal-idaztiak erosi bearrean, erdal-idaztiak erosi, eta euskal abestiak abestu bearrean, erdal abestiak abestu eta onelaxe beste batzuekaz be. Esate baterako: Txiroen artian esaten ba'dugu egunon, andiki artian «buenos dias» norberan etxekuer egunon, ez diranai «buenos dias» eta astia, garaia eukiaz euskal-jaupa (meza)ra juen bearrean, erdal jaupara juan; jaupa, jaupa duk esanaz, eta abar.

Au dana da, euskera jalgi barik dagolako neurera oker ez ba'nago. Plazara eta etxera be jalgiten ba'da be, uste dut aipatutakoen antzera jazoko dala. Oneexegaitik lenengo sartu bear dau gure euskerak neurera eta euki norberan baitan egingo dugu euskera toki guztietan, bai txiroen artean eta bai andikien artean, bai karrikan eta bai etxean. Baita erosiko gendukez euskal ingiak erderazkuak baiño geiago, bai idaztikoak eta bai izaparringikoak. Baita norberan ba'genduke gure izkuntza onoko au be, esango genduke, bestelako aldea ta eskarra jaukak euskaldunontzat euskal-jaupak, baiña zoritxarrez jalgi barik dagon arte neurera, eta, euki, neure baitan, esango dut, euskal-ingirik ez dut ulertzen ez dut ikasi ta irakurtzen edo bestera, ez dut erosten ikasi ez dut irakurtzen-eta, edo badakit irakurtzen baiña ulertzen, aditxuten ez dut, ta «alperrik» txindia emotea etzait gogozko ta abar.

Bear ba'da parre egingo dozue zuek irakurleok idaz-lan au irakurriaz, baiña ez dut uste parre egiteko idazlana danik. Neuonek idatzi dut idazlan au, biotzean ikututako euskera mardulagaz; eta neure baitan indartsu daukatalako aspaldiko urtietan. Onelaxe daukatalako gure izkuntza, ez dut erosten ez irakurtzen geurea izan ezik. Alper egingo dau alegiña iñok, erdal-ingia bialtzen neroneri. Zegaitik? Ulergatx, eta atsegin baga dalako neronentzako. Idazlan onegaz iñor minduten baldin ba'dut, parkatu daistela.

Gure izkuntza gaizkatzeko bildurrik barik egin bear dugu toki guztietan eta ez dakianari, saiatu bear dugu irakasten nun-nai.

BERMEOTAR BATEK

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAUZA BAT ESATEKO ESAKERA BI

Erriari entzunaz ikasi ez dogun esakeraren bat irakurtzean arrotz egiten jaku; iñoiz txarto esandakotzat artzen dogula be esango neuke, naita batzutan ala ez izan.

Niri orain arte arrotzen iruditu jatan esakerea erderazko SINO konjuntibuaren esan-gurako EZ BAIÑA daroen orretarikoa da; «Pakea EZ BAIÑA gerra eman didazu».

Ia berrogetamar urte ekarri genduzan olakorik entzun barik eta irakurri barik, ta gero danean plagia lez ikusteak beraganako ezin ikusia sortu dauts. (Txikikeria auxe ezta?).

Ez diñot esakera ori txarto dagoanik. Auxlar'ek be era orretan idazten ebana ba-dakit. Baiña esakera ori aldi aretan Bidasoa andikoena zan soillik ala euskaldun guztiena?

Guk beste erara esaten ikasi izan dogu.

Ara ondoren, ezkerrean, niri arrotz egiten jatan esakeraz idatzitako esaldiak eta eskuman, guk ikasi izan dogun lez.

Beste orren eran:	Gure eran:
Itzak EZ BAIÑA obrak balio dute.	Itzak EZ dute balio obrak BAIÑO.
Nik dudan ideal-gose ori EZtela nerea, BAIÑA izadiaren.	Nik dudan ideal-gose ori EZ-tela nerea izadiarena BAIÑO.
Idazle bat 500 euskal liburu ezin saldurik ibilli bear bada arrotu EZ BAIÑA lotsatuta egon bear genuke.	Idazle bat 500 euskal liburu ezin saldurik ibilli bear bada EZ genuke arrotu bear lotsatuta egon BAIÑO.
Iltzen denari EZ BAIÑA jaiotzen denari egin bear zaio negarra.	Iltzen denari EZ zaio negarra (negarrik) egin bear jaiotzen denari BAIÑO.
Eta beste batzuk, berriz EZ bizitza, BAIÑA ezereza maite dute.	Eta beste batzuk, berriz, bizitza EZ dute maite ezereza BAIÑO.

Esakera bi orreik, bai ezkerrekoa ta bai eskumakoa, ondo ei dagoz; baiña bietatik bat jatorragoa ez ete da? Ta zein, ala ba'litz?

Adibidez ipiñi dodazan esakeren esan-gurea agertzeko beste era bat be ba-dago. Goian dagoazan eran uste edo eretxiak korrejitzen dagoazala esan daikegu. Ta itzal andia dautsagun bateri, esate baterako zar bateri goian, eskuman ipiñi doguzan eran ez geunskio esango beste onetara baiño, esaldia bi zatitan banatuta:

«Itzak ez dute balio; obrak balio dute».

«Nik dudan ideal-gose ori ez da nerea; izadiarena da».

Baiña ba-dago arazo onetan argitu bearreko kontu geiago. Niri arrotz egiten jatan esakera ori batzutan illun gelditzen da. Ara emen:

«Oiek danak balitu, (Urtain'ek ez dituan alderdiaz diardu) Europa'ko txapeldun EZ BAIÑA mundukoa izango litzake». (Polita kontua; Europa'ko txapeldun izatera ez litzakela elduko ta mundukoa bai).

«Jainko bakarraren sinistea atze aroan EZ BAIÑA asieran idorotzen dugu». (Siniste ori, atze aroan lez asieran be arkitzen dala esan nai eban, baiña guztiz bestera urten jakon).

«Gai onek, hain zuzen, artikulu bat EZ BAIÑA saiakera mardul bat ere mereziko luke...» (Artikulu bat merezi ez daben gaiak saiakera bat gitxiago mereziko dau nire ustez).

Ondoren iru esaldiok bi aldetan ipiñiko dodaz, eskuman guk esango genduken eran.

Beste orrein esanak:	Gure eran:
«Oiek danak balitu, Europa'ko txapeldun EZ BAIÑA mundukoa izango litzake».	«Oiek danak balitu, Europa'ko txapeldun EZ EZIK mundukoa ere izango litzake».
«Jainko bakarraren sinistea atze, aroan EZ BAIÑA asieran idorotzen dugu».	«Jainko bakarraren sinistea atze, aroan EZ EZIK asieran ere idorotzen dugu».
«Gai honek, hain zuzen, artikulu bat EZ BAIÑA saiakera mardul bat ere mereziko luke...»	«Gai honek, hain zuzen, artikulu bat EZ EZIK saiakera mardul bat era mereziko luke».

Guk be iñoiz erabilten dogu EZ BAIÑA ori, baiña beste esan gura batégaz, erderaz Pero konjuntibua daroenean:

—Zure semeak ez ei daoz soldadu.

—Joseba EZ BAIÑA Iñaki ba-doa.

Ta amaitzeko: auzitara atara dodan esakera onetan ni konturatu ezin nintzan errazoiren bat izango ete zan bildur nintzan, baiña ez dago olakorik. Idazti baten idazleak gauza bera esateko esakera biak erabilten dituala iñoiz ikusi dot.

Orrialde baten ola diño:

«EZ gaude ez amaiaren asieran, BAIÑA bai biurgune aundi baten aitzinean».

Ta beste orrialde baten:

«EZ gaude ez amaiaren asieran, gizadiko Kondairaren biurgune aundi baten aitzinean BAIZIK».

Ta luzeegi egin baiño len amaitu daidan.

KAMIÑAZPI

POZAK ETA KEZKAK

An Arantztatzu'n, Charritton'ek olako galdera bat egin eban: «Nola esaten duzue gipuzkoeraz «imperialismo»?» Ez dakit nik nola esango dan, esaten ba'da, baiña atxedunak artu daben abiadea ikusita, amerikarrak, rusoak, baita Haiti'ko Duvalier berbera be gorgorkerian txiki itziko leukiez. Erriak iruntsi ezin dabela ikusita bere, sartu ta kito! Baiña lei griñatsu orrek, iñoiz, larrapast eragiten dautsee. Oraintsu Walt Disney'n kereizpean, onen babesa ona izango dalakoan «h»ok iruntsi erazteko, aren ipuiñak «bateratu» ditue, ta zabalkunderako orri batzuk bere egin, euskeraz eta erderaz. H ori sartu bearrak erangida-edo, erderazko agirian, auxe: La distribuidora se compromete ha *publicar... Mordoillo barriak asmatzeko gaztel-iziegia ainbestean erabilten dabenak eta, orrenbeste erdera dakiela erakusten dauskuenok, nola ain ortografi kaxkarra?*

* * *

Academia'ko aulkiren batera igo nai ba'dozu, ona emen bidea: **1**.—*Euskerea ikasten asi*. **2**.—*Batuaren alde oiuka azaldu zaite nun-nai*. **3**.—*Bateratu taldeko «grande» batek «munstro» deitu dagizula*. **4**.—*Intsentsu S. en C.'ko bazkide bateri eskutitz «abierto» bat bialdu egiozu (ez da bearrezkoa zuk zeuk egitea, izenpetzeagaz bakarrik naiko dozu)*. **5**.—*Arek, zirikada ori aintzakotzat artuta, «botafumeiro»a erabillaz erantzungo dautzu*. **6**.—*Egon zain; laster entzungo dozuz oorezko aipamenak eta gerotxoago «liguista» lez goraldua izango zara; orduan*. **7**.—*Bein, mailla orretara elduta, Intsentsudunak aukeratuko dautzu izendatuteko bidea: alfabetatze «kanpaina», Unibersidadeko ikasleen arduradun, edozein «bulego»ko idazkari, edo... Zorionak!*

* * *

Or irakurri dauskue: «jarraitzaile zintzoa sortu zaio Euskal Herrian», gure onetan agertutako lan baten apaingarri, Guk bere orrenbeste uste gendun, jarraitzailleak eta «h» ta guzti gaiñera. Ari ta aren lagunen «pupu» egiten ibilli ziranei ori ezarri nai izatea, «txotxo», oba etxean galdetu norek nori «ipur baltz»!

PIPER-ZIRI

GAZTE

Zintzotasuna

Gorka, laguna dot, beti-betikoa. Biok batera azi giñan, biok batera lenengo letrak ikasi genduzan, eta orain, biok batera gaztetasunera eldu gara. Baiña bion artean dagon alkar-maitasuna, egun oneitan askoz indartu da. Zergaitik?... Gorka ZINTZOA IZAN DALAKO

Gorka, baserrian jaioa da, baserritarren semea; semerik txikiena. Etxean, baserrian, euskeraz egiten eben; baiña bere gurasoak urira eldu ziranetik —ez dakit zelan edo zergaitik— euskerea baztertua izan zan. Gorka'ren sendiak, euskerea, oztopo zail bat izango litzakeala uste izan dau; ta orregaitik erdera egiten asi ziran. Baiña Gorka'k egin daunak, benetan poztu nau; Gorka'k egin dauana benetan txalogarria da.

Bere gurasoen aurka jokatu arren, Gorka euskerara biurtu da. Eta BENETAKO EUSKALDUNA egin jaku. Alde batera utzi dauz txepelkeriak eta zentzungabekeriak. Argi ikusi dau Euskal-Erria ezin leitekela salbatu euskerea barik; argi ikusi dau euskereak dauan adorea. Ez, Gorka ez da zalantzean izan! Gorka'k bere bidea betiko artu dau: EUSKERAZ EGITEA BETI AL DAUAN GUZTIAN. Berak ondo daki, bein baiño sarriago bere kideak barreka asiko dirala; berak ba-daki gaurko gazteen artean, euskerea jakiteari ez dautseela jaramon egingo; berak ondo daki euskerea il-zorian dagola...

Baiña Gorka'k ez dau itxaropenik galdu. Gorka'k euskerearen etorkizunean siñesten dau; Gorka'k ondo daki bere eskuetan dagoan izkuntza bat bere erruz ilko ba'litzake, ez dabela iñungo errukirik merezi izango. Ez, adizkide, Gorka ez da agozko euskalduna, biotzezkoa baiño. Oso ondo ikusten dauz gure oiturak, gure folklorea, gure errietako edertasunak... Baiña ondo daki gauza orreik, danok, oso gitxi dirala.

Bere gurasoak esan dautse: Ai, Gorka! Bide txarra artu dok; orregaz ez dok dirurik irabaziko...» Baiña Gorka'k ba-daki esukaldun izateak ez daukala salneurririk. Gorka, baserritarren semea izan arren, alde batera utzi dauz «kompleju» guztiak, eta ondo daki euskerea ez dala iñoiz oztopo izango bere etorkizunean. Gorka bai bulartsua ben-benetan; askoz errezagoa izango zan beretzat, gai ontan, ardura barik bizi izatea: ERRIAREN KULTUREA SOKONDO BATEAN UTZITEA; JAIOTZEZKO IZKUNTZARI ISEKA EGITEA; EUSKALTASUNA SALTZEA...

Baiña ez olakorik! Gorka galdetu da: Zergaitik atzerriko kultureak gurea zapaldu?... zergaitik euskaldunak mintzairea aldatu?... zergaitik ez dogu jakintzarik euskeraz?...

Eta Gorka guda zital baten saiatu da: EUSKEREAREN GUDAN. Bere aurrean aurkari askoekaz topatuko da, baiña Gorka bulartsua dan ezkero, ez dau iñungo bildurrik. Euskal arazoetan sartuko da; euskerea zabalduko dau leku, une ta aldi guztietan. BEREZ EMON JAKON MINTZAIREA, EZ DAU BEREZ GALDUKO! Orregaitik, Gorka, adizkide on: ZORIONAK! biotz-biotzez.

.....

Txorien abesti alaiak esnatu nau. Nere ingurua begiratzean, ez dot Gorka aurkitu. Au bai tamalgarria!...

Gabeko amets bat izan da; egun sentiko argiak galdutako amets zoragarri bat.

Bai, barriro dana da bardiña gure Errian. Barriro etxeetako leioak zabalduko dira; barriro umeak ikoletara joango dira; barriro euskal gaztediaren loa agertuko da.

Gure gazteak ez dira konturatuko; gure izkuntzeari ez dautsee bat ere garrantzirik emongo... Barriro entzungo da sendi askotan: «Ez dau ezertarako balio»; edo «Euskeratik ez dogu jango»; edo «Zertarako ikasi euskerea?»; edo «BURGESEN IZKUNTZEA BAIÑO EZ DA». Bai; orrela da gure bizitza au. Orrela euskaldunen jokabide tamalgarria. Eta bitartean, guztiz babes-gabe, gure EUSKERA GAIXOA, jostaillu bat lez erabillia.

Gure gaztedia ez da konturatuko, eta euskereagaz, apurka-apurka, Euskal-giro guztia betiko galduko jaku, igarri barik.

Nik Gorka a bezelako lagunak nai nituzke; baiña zoritxarrez ez dodaz ain errez aurkitzen... BAIÑA EZ DOT ITXAROPEN GUZTIA GALDU; oraindik uste dot, ez dala Gorka amets utsa besterik izan; oraindik uste dot, nun edo nun, aurkituko dotala.

Baiña olan ez ba'da jazoten, Lertxundi'ren itz oneik arrazoi aundia dabe:

«Gauza oiek ikusteko,
Nola esnatzen gara?
Gauza oiek egiteko,
Nola jaikitzen gara?
Txoriak alaitutako
Eguna ondatzeko,
Obe genduke ez esnatu
Ta bertan segi lotan».

EZKAURIATZA'TAR XABIER

EUSKAL HIT PARADE

Itxura guztiak ekarrazan, ESTITXU'ren disko barria entzun genduneko, laster asmatu gendun gorakada aundia egingo ebala, naita abesti eder asko izan disko orretan, eta autarkiak batengana jo bearrean danen artean sakabanatuak izan, Otsailleko bigarren amabostekoan gora-gora joan da bere «AGUR MARIA» eder ori, bigarren geratzen dala, ARABA'koen «AMETS» orren ondoren. Ez da ori bakarrik aipagarria, Zarautz'ko «OLESKARIAK»en «Itxaropen Bat» orrek be mailla bi igo dauz. Baiña «ARABA»koak indartsuen; or ditue lenengo, bostgarren eta amargarren euren iru abesti... zati baterako.

Ta, amabosteko biak alkartuta, ona emen il osoko lerrokadea:


1.—«Amets», Araba abesbatzak abestuta.
2.—«Orrela Doa Mundua» Enbeita'tar Jon'ena.
3.—«Zure Begiak», Mocedades taldearena.
4.—«Gora Araba», Araba abesbatzarena.
5.—«Ezin Aztu», Luis Mariano'rena.
6.—«Markesaren Alaba», Urretxindorrak'ena.
7.—«Itxaropen bat», Zarautz'ko Oleskariak'ena.
8.—«Agur Maria», Estitxu'rena.
9.—«Ama Begira Zazu» Lexona'ko San Juan Bautista'k.
10.—«Goizeko Izarra», Algorta'ko Biotz-Alai'rena.

Zera; nor-geiago aundia dabil, baiña ori baiño be obea, gero eta autarki geiago emoten dabe entzuleak, eta euskal-diskoentzazko zaletasuna be indartzen doa, Aurrera!

Il onetako neurketarako, salketak gitxitu egingo dirala uste izan bear, beti be, Aste Santu inguruan, beste urteetan bezela, berantza egingo dabe-ta. Doiñu alaiak baiño beste zerbaiterako giroa sortzen da gure artean.

Bitartean, ta udaberrian sartzen garala, UDAKO ABESTIA izendatzen dana aukeratzeko, asi dira leiaketa onetarako euren abestiak bialtzen; aurten igaz baiño indartsuago datorrela ikusten dogu; olan izateak asko poztuten gaitu, ta ona da. Ta Ares jaunak urrengo au bialtzen dausku:

OARRA: Idaztiak bialtzen saiatzen diran guztiei, udako abestiaren aukeratzea ondo ikusten ez eben guztiei: *Orain da zuen garaia!* Epaillaren azkenerarte datozela zuen aukeramenak.



GEZALA'tar Polentzi'ren txistu zoragarria entzun ez ba'dozu, ez dozu oindiño igarri zenbateraiñokoa dan txistuko soiñua. Ara esanda, esan bear dana.

Polentzi, Lezo'n jaio zan, ta gazterik asi zan doiñuketan. Bere lenengo irakaslea, aztu ezin izan dan Lizaso'tar Alexander, bere bizia eskeindu eban Errenderi'ko txistulari ospetsuen lenengo txistularia.

Gero, Donosti'ko txistulari taldean gorengo izan dan Ansorena (ikus, AGUR'en 32'gn zenbakia) izan eban bere jakintza ta trebetasuna indartu ta marduldu eutsana.

Amabost urteko zala, ta bere irakaslea lagun, Donosti'n ospatu zan txistu jaialdi baten, Do eta Fa oiñeko «Contrapas» ori, txistu jokoan zaillenetakoa ederto biribildu al izan eban, entzuleak ao-zabalik geratzen zirala.

Arrezkero, or izan dira bere garaipenak, emen, an, Paris'en, nun ez? Paris'ko musikazterlari arek idatzi ebana beretzaz ezaugarri: «Nola liteke iru zulodun makilla batetik orrenbesteko eresia sortutea?»

Ta arrezkero nun ez dau jo Polentzi'k! Bere erriak izan dau aukerarik gitxien, baiña badakigu, ez bere erruz. Entzun egiozue diskoan, besterik ezean, ta zuen iritziaren zain geratzen gara.

ERNANI.—Datorren Jorraillaren 16'an, Ernani'n, jai-egun zoragarria, Ba-dakie ernaniarrak gauzak ondo baiño obeto egiten, ta oraingo onetan, euren aurren onerako, Ikastolearen alde izango dan jai onetarako, danetik izango dozue, ta ez gitxien abesti eta bertsolarien aldetik.

Or izango gara, Maritxo! Laster arte ba.

LOURDES TA XABIER

«ikas» iztegia

Euskera-Erdera; Erdera-Euskera iztegitxo barria, gaztea, labatik urten barria. Il onetan bertan argitaratua izan da MONTIANO Ikastetxearen babesean; egilleak: Jose Antonio de Montiano ta Jose Ramon de Urquijo jaunak; laguntzailleak: Carmelo de Etxenagusia ta Peña'tar Xabier euskera-jakitunak.

Amar milla itz, bizkaieraz eta gipuzkoeraz erabilliak, eta geien bat, bietan bardiñak diranak; aor batasunerako bide erreza ta iñoren indarkeri barik aukeratu daikeguna; Bietan ezagun eta erabiltzen diran itzak erabilli beti.

Ez dira gaiñera itz utsak. Itzekin eta aditzekin osotzen diran esaera jatorrak be or datoz: «atseden artu», «batera etorri», «eder izan»... Sakelerako neurrian gaiñera; izkia ederra ta garbia; 238 orrialde. Bearrezkoa zan iztegi au ta emen dozu zure zain. Bera etorri jatzu, joan zeu be bere billa, bide erdira, or, idaztetxe guztietan aurkituko dozu.

Akatsak be ba'ditu, gitxi, olan esan dauskue, irarkoletakoak izaten dira geienetan, eta urrengorako zuzenketak egiteko geuk be lagundu daikegu. Orain arte, guk geuk, bat bakarra aurkitu dogu, ta ez dirudi akatsa, asmo barik iges egindako akatsa, jakiñeko okerra baiño; «s» orretaraiño makurtu bear...

UBITZA

Basarritxik Kalera

Neu lez, mendionduen bizi ezkero, kaletarren tratu-truke edo artu-emona, beti izaten da gatxa edo beintzat gitxienez gora-beratxudune.

Basarrixen ez naz bizi, baiña, bai, mendixen, Santa Eufemia mendixen. Ganera, nire ogi bideko bierra edo lana beti izen da, eta izengo da, neure us tez, basarriko artu-emonetan. Paperak, eskriturak, ezkontza kontratuek, alkarpoderek... ori da nire eguneroko joko eta ogi-bidie, len esatoten lez.

Ixeixe berrogei urte daroidaz onetan. Bizi modu luzie, bai, eta gauza askon «kaxie»...

Oraiñ berrogei edo ogetamar urte inguru beste arpeikera bat eukan gure inguruko bizitziek. Orduen, asko baiño geixa ziran erderaz deuzikpe ez ekixenak... Pirmie, barritz...? Pirmetan ekixena (mendikuekin nabill) «abogau edo» «Sazi-letrau» lez artzen zan.

Ortik dator gure mendiko eta basarrikuen orduko izetie. Gaur, osta, dana edo geixena beintzat aldatuta dago. Oingo basarritxar apurrok kalera begira dabiz. Taillerretan bierra egiñ, eta piñue sartu opera arte... ta aurrera, errez, errez.

Gaztedixe eta bai elduauek be, lengo zarren aldiz, asko geixa dakie. Asi irakurten, ezcribitzen, aitzen lege gora-berak; danien, berba bataz esanda: danien, guztizko gora-beretan eurak, oiñgo basarritxarrak, ez dauko bildurrik kaletar argixenaz neurtzeko.

Menditik kalera, gaur, ez da bildurrik, len lez.

Arek bai denporak. Euren gomutasunaz nire burure datoz gauza asko. egixak eta benetak danak: batzuk poz-garri, baiña beste batzuk bixotza txikurtu ta miñduta iztekuek.

Gaztie nitzen, umie obeto esateko, geixen jo ta be amalau edo amabost urte eukiko nitxuen orduen, oiñ ogeta amar urte dala, ta ez baten bakarrik, astero, egunero ez esatearren, gizon zarrak, lepue arkotute, eta euren makillan laguntasunez, argitze zien nire aurrera, gure para, paperak zuzentzeko desioz... Esatoeten lez, oiñ ogeta amar urte baiño atzerako kontuek diez onek.

Arek gizonak, zintzuek benetan ziran. Gizon ondrauek, euren bizi guztixen euri, eguzki, edur eta ixotz lepo ganien artutekuek gorri gorrixen. Agertze zien bildur bildurretan.

—Baiña, euzkeraz dakik, mutil...?

—Eztot jakingo ba, markiñarra izenda. Markiñarra naz, gizona, Juan Bolante'n semie...!

—Juan Bolente'n semie az...?

—Bai, ber berana.

—Jesús, Jesús... Auxe dok nasaitasune, Bildur, bildurretan etorri nok etxetik onutz. Zeiñegaz tope egin biot nik gaur...? Auxe izen dot neure esturasune, eta ez makala. Jangoikuari eskerrak. Ara, emen, Juan Bolante'n semie...!

Bai. Nire aitxe, Markiñ-etxebarriko semie zan. Au, izen ori, Bolante, jatorriz zan. Etxebarriñ, oiñ egun edo egun'de berrogei urte, gure aitxan jaiotza etxien zien burdi-bolante aundi batzuk, mando eta baitxe mando-zaiñek. Onek morroiok Errioja'ra oztera morduek urte barruen egite zuen ardau, piper eta alako jenero bille. Arrana txintxillizke pertikan... il kanpai soiñuaz, or doiez gure mando, mando-zaiñek ta tatarrez atzetik burdi-bolante galanta. Ortik dator nire aitxan ez-izena: Juan Bolante.

Basarritxar zarrak, poz pozik ziran ezauperiaz...

—Konde, konde. Bolante'n semie zara... jakiñ ba'neu, arnasie be zabalduko jatan, bai gero... Axe esan, eta axe esan...

Onek berbok, zenbat bider entzundakue nazen ezin neike esan. Asko eta askotan. Gizon zarrari, ondrau benetan, bixotza eta paparra zabal, zabaltze jakuen bai pozaz, nasaitasunaz, jakiñeran ni euzkaldune nitzela, euren anai eta odol batekua, ez erdaldun-kale-txakurra. Nire euzkera markiñarra entzunaz, miñe ta berbie soltate zan pozarren. Zenbat gauza gozo, eta zenbat gauza negargarri entzundakue nazen onen gizon zintzuen agotik.

Beti amaitze zan gure paper zuzentzie «atzamarrekuaz». Badakizue zer dan...? Pirmetan jakiñ ez, irakurten bez, ta tinta-kajatxuko almudan atzamar lodixe busti eta pirma ordez an izteben paper barrenien euron atzamar marka ori.

—Ondo gatuok ausentue, e...? (geratu dok).

—Bai, gizona, juen trankill.

—Bueno, b eno. Ia-ba, ia-ba. Gure modukuek, ba-dakik... Zeuok esandakuaz eta egindakuaz konpormau bier...! Gure umetan eskola jun bierrien, solora...!

—Egon trankill, gizona... Zure odolekue naz, zure anaia naz. Eztotzut egingo joko-txarrik.

—Bai, errezoie, Igaz etxaukat bildurrik. Baiña gu kalera etorri ezkero, «gor itxu, mutute» gelditze'ga. Ez erderaz, ez irakurri... Jangoikue, lagun...

Bere makillatxue artu, eta eskillarak bera, armailla, armailla, len baiño okerra, geldi geldik, ba-doie ostabe, bere basarrira, bere mendira...

Begi, begire gatze nitzen beti... Onek die gizon garbixek benetan. Begi begire... negar malku bik illunduarren nire begixek...
Laster, arte lagunok.

JUAN JOSE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

Euskalerriko Oiturak

(Zugaitz Landaketa)

Ez da gaur goizeko kontua. Oiartzun'go erriyan, nere jaiot errian, orain esatera nijoakizuna.

Garai artan, nere tiki denboran, «Zugaitz landaketa» izenakin egiten zan pesta. Urte batekua esango dizut, neri geien gogoratzen zaidana.

Eskolako umeak giñan, piñu landaketa ori Urkabe'ko mendian egiten genduanak. Aldez aurretik, abesti batzuk ikasten genituan Rekondo'tar Frantzisko apaiz jaunak erakutsita. Delako egun artan, arratsaldez, eskolako ume guztiak bildu giñan gure emparantza zabalean, apaiz ori gidari genduela; lau alderdietan aditzen zala, abesti eder oiek kantatu genitun. On Frantzisko berak asmatu eta erakutsitakoak. Emen dijoakizute ba-da:


Zugaitzez ornitu nai degu erriya
abestu dezaten Jaunaren Gloriya.
Zabaldu dezagun zugaiztegi aundiya
goratuaz orrela gure sort-erriya.
Lurra'ren loriak gozo garbiyak
Itsasuaren arrai bizi dira ugariyak.
Mendiyan zugaizti lerden agokiyak
¡Jauna!, gizonarentzat egiñak dirade guztiyak.

Ondoren, danok Urkabe mendira: an jarria gendun leku berezitan, bakoitzak, geren piñu aldatzea egin gendun. Bereala gure apaiz onen itzaldia; goien goieneko maillan jarriaz gure baso eta mendi, edo zugaiztegi ederrak. Gero, Udaletxe edo ayuntamentuan aldetik, eman ziguten «Arratsaldekoa» jan ondoren, poz pozik ostera errira biurtu giñan, eta bakoitza geren etxera.

Esan bearrean nago, apaiz jator arreri zor aundiua diogula. Gure erria maitatzen, eta euskal-zaletasuna sortu erazten erakustsi zigulako. Lan asko egindako apaiza gure tiki denboran, eta gero ere, beti izan gendun lagun; bai «Kristau ikasbidea» erakusten; abestiakin berdin, bereitzaldi egokiakin eta abar. Bere sasoirik obenian Jaunak bereganatu zun.

Bijoazte bada, lerro abek, gure apaiz agurgarri onen oroigarri ta omena bezela.

MIRENTXU



BANCO DE BILBAO

onek emakumeen eskubideak
onartzen ditu

Gaur eguneko emakumearentzat bere Bankoan kontu edegia eukitea legezkoa da.

Lenago, aurreratua aurreski-gutun baten gordetzea aiña.

KIROLAK

IÑURRI LANA

Zenbat onetariko, ta zori-txarrez, zein aiztuta geratzen diran. Zori-txarrez diñotsuet, iñurri lana ba, estalpean egiten dana da-ta; geienetan, gizarteari aurrerapidea ekarten dautsana gaiñera, bai teknoloji aldetik, bai ikasbide gaietan, baita gure jolasetan, gure lasai aldietan bere.


Gure idazlantxoak Altuna'tar Josu'ri bialtzen dautsaguz berak AGUR'era eroan dagiazan, ta ori dala-ta, egun batzuk dirala, bere ule-moztegira joan nintzan.

An, «Menditar artezari» labur bat ikusi neban. Neure eskuetan artu ta ikustalditxo bat egiñaz, arrituta gelditu nintzan ain leku txikian zenbat gauza eder itzulita egoazela ikustean.

Esakera sakon batzukin asita, eskeintza bategaz jarraitzen, arritu zuok bere; urrengo, Euskalerriko mendiak, euren neurri, izen garbi ta areitara eltzeko biderik egokienak bere. Erbesteko mendirik garrantzitsuenak be azaltzen dira, ta amaitzerako orrietan Bizkai'ko Artzuloak edo Leizak.

An zan lan guztiaren jabea nor zan ikusi nebanan, arnas barik geratu nintzan: JOSU berbera. Gure «Basa-Jaun» mendigoizale sutsua zala, ba-genkian; bere alegin guztiak euskal gaztedia garbizale ta mendigoizale biurtzeko dirala be bai; baiña, emendik olako buruko miñak artzera, arloa dago.

Ta dana ixil-ixillean, apaltasunean. Parkatu «Basa-Jaun», baiña ezin gara ixillik egon lan ori ikusi ta gero. Euskaldun mendigoizaleok, «Menditar Artezari» labur orretan daukazuez mendigoizale jator, zintzo ta ospetsu baten ardurak itzulita, zuen ibillialdietan lagun egokiena izango dozuena. Bost ogerleko bere salneurria, baiña ondo emondakoak mendi zaletasuna daukanentzat, ta esan dagidan: baita jakingurea daukanentzat bere.



Erosi nai dabenentzat, dei bat AGUR'era edo Josu'ri berari be bai; zergaitik ez? ez da ori lotsa izateko-ta, batez be, ainbat ordu ta diru galdukoa dan ezkero lan onetan, bere Erriko aberastasunari begira, beste edozelako asmo barik.

Lagundu daiogun, beste lan batzuetan jarraitzeko gogoa izan dagian. Ai, Josu, zulako asko ba'geunkez Euskalerrian...! Beste argi bat izango genduke.

Eskerrik asko, bai nere baita mendigoizale guztien aldetik.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Aurrera Doaz

Zoragarria Erostarbe'k Garzia-Ariño'ren aurrean egin eban jokoa! Axpe-Marzana'ko gizonak, ez doaz alperrik urteak aurrera, asiera sutsu eta jokoz betea erakutsi euskun, 8 ta 3 irabazten jarri zala. Bost aleren aldea beriala baten. Gaztea baiña gazte, ta Erostarbe'k zortzigarrenean, ortxe bertan oratu eutsan: 8 *ta* 8. *Ortik aurrera, Aretxabaleta'tarra aurrera, ekiñaldi baten* 22*'ra, bizkaitarra* 12*'kin geratzen zala. Amar ale gorago Erostarbe, gazte ta indartsu, ta joko ederraren jabe.*

Amaitzean, besarkada bero baten lotu ziran, ikusleen txalotza pean, Bergara'ko pelotatokia betetzen eben kirolzale arein aurrean.


* * *

Pierola'k be Nalda bigarrenaren gaiñetik geratu al izan eban: 22 *ta* 19, *ez baiña joko indartsu bat bete barik; Nalda'n azken aldiko gorakadea ez zan izan makala. Logroño'n jokaldi ederra ikusteko aukerea izan eben.*

* * *

Tolosa'n Orexa bigarrenak Andueza irugarrenari irabazi al izan eutsan: 22 ta 15. Epail onen 26'gnean, igandez, Mungi'n, bizkaitarren aurrean, Erostarbe ta Pierola alkar neurtuko dira. Zer esan. Itxuraz, orretan dabiltzenak, Erostarbe'k irabaziko dabelakoan dagoz. An ikusi bear, ta J. l. ikusi be egingo dogu.

SALARI



Japon eta Pelota Jokoa

Euskaldunak ezezik euskal izate, mendu, mintzoera ta garaitikoak be lurbira barna ondo be ondo ezagutuak ta geien bat txalotuak dirala ezin uka. Euskal kirol beiñena dan pelota jokoaz be beste ainbeste jazo oi da.

Guztioen ezagunak dira Laterri Batuetako Miami'n datzan pelota-lekua; lengo baten Kuba'ko uriburuan. La Habana'n, izan genduana; oraintxo be Txina'ko Xangai'n, Pilipinas ugarteetan tab. Euskal jatorrizko danez geure geurea dogun Pelota jokoa, pelotari errime, trebeak tarteko, euren beso mardulez landurik, erroturik ta tinkaturik ludiko lau alderdietara gizonki edatua; aomen apartekoa benetan damoskun Kirol bardingabea; gure Euskal-erri txiki baiña edonun ezagutuari, poz-jario barrenkoia egitan damotson etekiñ parebakoa, gaurdanik, Japon Laterriari be, uste dogunez, garaia eldu jako. Japondarrak lendik euskal-zaleak ba'ziran are geiago gaurgero, nik uste.

Edesti apur bat: Euren oroimen-biotzetan Prantzizko Xabiertarra, ludiko mixiolari kementsu-enetarikoa, euskaldun jatorra zanez iltzer egoala, euskalki napartarraz mintzatuz, gogo garbia Goiko Jaunari eskeiñi eutsona, seguru-asko ba-dirau. Geroztik or dozuz Igokundeko Martin Deuna euskal-ziñopa gurgarria ta gure izen ta trebetasuna alik ondoen edatu eben ainbat eta ainbat salerosle bipil, ixas-gizon ausartiak ta abar.

Oraintxo be, joan dan udaberrian deritxat, Endañeta'k gipuztar Euskalerriko arri-jasotzaille ospetsuenak, beste lagun bategaz Japoneratu zala, bertako orok arri ta zur itxi zituan.

Agerraldi asieran euskal-erritik ekarririko arri astunekaz baliatzen zala, ta gerokoan ia bi metro luzedun zan Japondar bategaz nor geiagoka jokaturik, eun kilotik gorako ur-oloz beteriko sakutzar bat, japondarrak esku biekaz ta giputxak bategaz atan be, sekulako erreztasunaz indar-leiaketea giz-andiari irabazi eutsalarik, ez bat-ba ez bi japondar guztiok, ao bete azurrez, guztiz txunditurik geratu ei ziran.

Pelota-jokoa barriro jardun bide iakula Japon Laterriaren uriburu dan Tokio'ko antzerki ta ikusketako kateien batzarreko Hamanaka abizenez dogun bazkide bat, bere erritar batzuekaz Lapurdi ta Benabarra'ko pelota-lekuak ikertu bidez, zorabiauta lez lotu zan pelota jokoaren lerdentasuna ta pelotarien arintasuna ta bizitasuna era batez begiztaturik. Bereala aberriratu zan ta pelota jokoaren bereiztasun guztiak Japon'en sar-erazteko gertu ei-dago.

Lenen ta bein, itxuraz beintzat, zolitasun berezia daben erremonte, zaretxisterazko ta beste tresna luzedun pelota jokoaren agerbideak erritarrai opatzera doa; geroko baten tresna labur edo palazko, ta eskuzko pelota jokoa berebat aberkideai joranez eskeintzeko.

Japondarrak iñarkun guztietan zoli ta argi jokatu oi daben lez, ba-leiteke pelota jokoan be aldi gitxi barru nabarmentzea. Gerokoak baiña geroko. Ez daigun, igali-zugatza landatu aurretik, bere arnari goxoak txestatu.

ARREGI'TAR JOSU

Eskuzko Pelota-Txapelketa, Bakarka

Neguari agur egin baiño len, eldu jaku, urtero lez, eskuzko pelota-txapelketea. Jakiña danez, mailla bitan jokatzen da. Lenengo maillako txapelketan, pelotari onexek esku artuko dabe:

5 napartar (Lajos, Retegi, Bergara, Pierola ta Oreja II).

3 gipuzkoar (Tapia I, Andueza ta Erostarbe I).

Bizkaitar bat (Jesus Garzia-Ariño).

Arabar bat (Nalda II).

Guztira, amar... Nor izango ete 1972'ko txapeldun?

Txapelketaren kondaira, labur-labur

Oraingo legezko txapelketa au, 1946 urtean asi zan. Aurtengo au, beraz, 27'garren aldiz jokatuko da. Aurreko 26 urteetan, onexek izan ziran txapeldun:

Atano III	4 aldiz
Gallastegi	3 aldiz
Barberito	bein bakarrik
Soroa	bein bakarrik
Arriaran II	2 aldiz
Garzia-Ariño	2 aldiz
Ogeta	2 aldiz
Azkarate	6 aldiz
Atano X	2 aldiz
Retegi	2 aldiz
Lajos	bein bakarrik, igaz

Garzia-Ariño, barriro be txapelketan

AMABOST URTE igaro dira Jesus Garzia-Ariño lenengo aldiz txapeldun izan zanetik. Ez da gitxi! 1957 urtean izan zan. Arriaran Bigarrenari irabazi eutsan azken-jokaldia, Bilbo'ko «Deportivo» pelotalekuan. Gaztegaztea zan orduan: 22 urte baiño ez. Geroago, 1963'garren urtean jantzi eban bigarrenez «txapela».

Tolosa'ko pelotalekuan 22 ta 2 irabazi eutsan Azkarate'ri. Baiña urrengo urtean, Azkarate'k berak kendu eutsan «txapela», Donostia'n, 22 ta 14 geldituaz.

Pelotazale danak ondo dakianez, Jesus Garzia-Ariño jokatu barik egon da luzaroan. Baiña or dabil orain, jo ta keia, saiaketa gogorrean, aurtengo txapelketa onetan bere balioa erakutsi guraz. Noraiño elduko ete jaku...? Zernai jazota bere, txalo beroak joten dautsaguz laster 38 urte beteko dituan Axpe'ko pelotari adoretsu ta jatorrari!

BEIÑAZU

NAZIO ARTEKO NASPILKETAK

Politikak zikinkeri aundiak dauzkatela guziok dakigun albistea da. Zikinkeri oiek ordea, ez dira oraingoak, aspaldikoak baizik. Urte bakoitzeko nazioen ezbearrak, nun da noiz gertatutzen diran begien aurrez dauzkagu. Urte ontako nazio ori. TXINA da.

Dakigunez, Txina bi daude. Orain artean beintzat bai. Geroago ikusteko gaude, bat bakarrik zela, ta nola geldituko ote dan.

Begira dezagun Korea, Vietnam, Alemani edo Israel-Arabeari. Bost laterri oien burrukak beren eztabaidak, ta gaiñontzeko naspilketak... ikusirik, zer esango degu? Ez da oraingo gertakizuna. Aspaldi artan, etxean ikusitakoak gera gu.

Amerikanoak, ortan yayuak diranez, berei komeni zaioten politikeriak ederki antolatzen dituzte. Beretzat diot. Ez ordea, mundukoen gogozko jokaerak. Auek, oieri, ajola gutxi, aizeak noruntz jo, ta zapiak an legortzen usten dituztelako. Ajola gutxi ere, naiz ta arrazoirik ezeko bideari jarrai, berei komeni zaizkioten artu-emanak lortzeko, naspilketak egiteko.

Txinoak, bi alderditakoak, alkar-joka dabiltzanez ta burruka bizian, gaur, gauzak, indar gutxi daukanari sorbaldak erakusteraiño. Orain artean Formosa'koak ziran amerikanoak aintzat artzen zituztenak. Orain batekoz-bestera politika zikin ta urde ori aldatu. Zer gertatuko da aurki?

Ez da oraingo kontua. Aspaldin ikusita geunden, zer gertatu zan, dalako Nazio-Arteko une artan, Ginebra'n. Zer egin zun munduak? Indardunari arrazoi eman, ta indar gabeak burua makurtu.

Geroztik, Europa'ko guda eldu zanean, ikusi gendun Polako ta Txekoeri zer gertatu zitzaien Alemanak arro zeuden une aietan, txarkeriak egin zituzten; nai zituzten lurrak artuaz ta burua makurtuazi, txepelago ziran laterri oieri. Amerikanoeri ordea, ez komeni lapurkeri ura. Zer egin zuen? Egazkiñez zearo apurtu bazter guziak, milloikak il, ta berriro artu besteak arrotasun guziakin artu zitusten lurrak, beren lengo tokian utziaz? Polakueri zer egin zioten? Gizajoak! Ingelesak ortan yayuak diranez, sorbaldak altxa, ta polako gizajoak, arrazoi zutenak utzi ezereztuta. Kondairak ederki ezarrita utzi zitun gertaera guziak. Arrazoi zuten polako aiek, zergatik olako traiziñoa egin ta gelditu arrezkeroz deseginduta?

Berdin egin zioten Txekoeri. Naiz ta guda irabazi, azken bildurgarria izan zuten. Irabazte orrek etziotelako ezer ekarri. Prantzesak lortu zituzten beren lur guziak. Berdin Olanda ta besteak. Baiñon, nola gelditu ziran polako ta txekoak? Rusoak gelditurik polakoen lur pilloakin ta, auek kenduaz alemaneri beste lur pilloa ta beste olako naspilketa ugari ikusi genduzen Europan! Indarra nagusi! Naizta, kondairak diotenez, DAVID izan GOLIAT beratu zuna; polakoak ta txekoak ezin izan zuten burruka ori irabazi, David'ek irabazi zion bezela Goliar'eri.

Lotsagarri zaigunez, gaur egunean Formosa'ko txinoeri gertatzen zaiotena; Ta Formosa'ko benetako erriari onek eragiñazi dit beoien alde zerbait idaztea. Egunero izparringiak, irakurriaz, naska besterik ez dit ematen. Zer gertatzen da gaur munduan? Len ain txar eta piztiak ziran nazio oiek, orren bildurgarriak bai ziran, orain zergaitik dira onak?... Komenientzia noski. Politikaren zikinkeriak indar izan nunbait... indar gabeak menpean gelditurik.

Europa'ko guda bukatu zala ogeitaka urte joan diran. Arrezkeroz, naizta ezta-baidak ugari izan, gudik gabe bizi gera emen. Pakez azaletik, naiz ta barruko odola irakiten eduki. Asia'ko gudak, berdin Arabi-Israel'goan, alkar konpondu eziñik daude. Zergatik? Interesak daudelako tartean, ta interes oiek barruko baiño kanpokoak geiago. Aundi oiek, arroputz oiek, nai izango ba'luteke, gudak aixa bukatuko litzazke.

Gure bizi guzian, Europa'ko mapak zearo naspilduak izan dira. Nai dutena egiñaz, ta burua makurtuaziaz David txikiari... Ze nolako kontzientziak dauzkate oiek? Norberen onerako ba'da, ajola gutxi oieri, ta gutxiago baldin nazio txikia ba'da.

Amerikanoen arrotasunak, ikusten ditugunez, gero-ta geiago txepeltzen ari dira. Rusoak gaur, jaun ta jabe dira Mediterraneoan, Rusoeri ere ajola gutxi, arabe alde lagundu guda ortan, laguntasun ori beren onerako ba da, ta, ala dala on ematen du munduak. Ez uste izan ere, amerikanoak gure onagaitik laguntzen digutenik, berenagaitik baiño. Amerikanoak, orain arteko gudaketetan beti beren etxetik urrun gudatu dira. Etxean izango ba'luteke guda ori, orren arro jokatuko ote luteke? Ardura gutxi oieri bertako semeak urrutietan iltzeaz...

E. OZKIN

EGOAFRIKA

Sudafrika'ko edestia oso ezaguna dalarik, «apartheid» aberria danez, biotz erdian daramaten arazoa dala, ezin uka. Apartheid itzak, bereztea esan nai du, alegia bi abendaren zatiketan oiñarriturik, zuriak alde batetik eta beltzak bestetik bizi dira. Eta zatiketa au, egiñ arren, indioek eta mestizoak gelditzen dira, Asia'tik etorriak.

Ezin uka diteke, arazo sakon auek zuzendu naiean dabiltzan gizonak, bat baiño geiago dirala, Gizon kezkati auek, eskeintzen dituzten bideak onartzekoak diralarik, komunista izenez ezagutzen dira. Agiri bat eskuratu bearra daukate, ta agiri orregaz, larunbat eta igandeetan ez daukate etxetik irteterik. Beraz, gizon doakabe auek gaitzesturik daudenez, «banned» izenarekin ezagutzen dituzte. Itz au, naiz zurientzat naiz beltzentzat, berdin da.

Iñori adierazi gabe, iñorengana joaterik ez daukate, ta zigor onek bost urte iraun lezazke gaiñera. Zapalketa onek, ez al du gizona erailtzen? Sudafrikatarrak, apartheid itza ez dute ain gogoko, itz onek, kondaira luze ta goibela gogora erazitzen bait-diete. Orregatik, itz orren ordez, beste itz bat aukeratu dute: ta itz orren tokian, «desarrollo separado» erabiltzen dute.

Sudafrika'n, endaren berezitasuna, ta erria bezela agertzeko lagepetua egon ez arren, beren biotzetan erri izate ta erri batek bizi izateko deia nabaitzen dutela, esan bearrik ez.

Verwoerd'en agindupean, arau-batuen bereizketa baiño leenago, ipar-aldeko Rodesian gaur egun dagonaren antzekoa zan. Erri ortako legediak, beltzak, zuriegaz ezkontzea ez du galerazten.

Sudafrika'ko agintarien muiñ guzia auxen da: beltzaren erria bakarra ez dala, adierazi alegia. Bat baiño geiago diranez, bereiztuta aurreratu bear dutela, eta orrela izakera ori izango dala beste egipen guzei, zer jokabide artu bear duten erakutsiko diena. Au guzia siñistu-erazi nai diote, ta siñistu-erazteko, toki batzuk aukeratu ta antolatu dituzte. Bakoizka bizi diran toki auek, «bantusdans» edo «homelands» izenarekin ulertzen dira.

Vorste'n jaurleritzak, gogoan dauka arazo sakon au, orregatik laister azkatasun osoa iritxiko dutela agintzen die. Zortzi «homelands» sudafrikako, 100'dik 27 lurren-gain jabeturik bizi dira. Bestalde, 100'dik 73, zurien eskuetan daude. Auek danak, Rodesia, Mozanbike ta Indikar itxaso zear aurkitzen dira, alegia, Cape mugaren at, daude. Naiz eta lur aberatsa dalarik ere, ez dago landua, orregatik leku beartsuak dira.

Ga-Rakuwa-uria, multza pilla txabolaz osatua dago. Etxe danak berdiñak diralarik, etxe bakoitzean sendi bat bizi da. Etxeak oriz margolduak, toki arritsuak eta autsez beteak. «Ghetto» ren sarrastada ematen du. Johannesburgo'ren asiera olakotxea zala esaten dute.

Bantutarrak ez dira geienak «homelands» auetan bizi, bestela goseak ilko lirazke ta Cape, Orange, Transvaal et Natal'en bizi dira. Zurientzako, arratsa etorri artio, lanean diardute, ta gero beren «Township» edo Ghetto'tara itzultzen dira.

Bantu bakoitzak beragaz «pass» edo agiri-karnet bat bere argazki ta guzti darama, lan-tokiko nagusiak izenpetua gaiñera. Gaueko amabietan Johannesburgo'ko kaleetan beltz bat aurkitzen ba'dute, eraman lezake beragaz agiri ori! Agiri orretan lanari zortziretan utzitzen diola jartzen ba'du; beltz doakabea! zuzen-zuzen espetxera daramate.

Agintariak esaten dute; «pass» onen araberaz, beltz geiagok sarrerik izan ez dezaten, asmatutako legea dala. Azkenengo urte auetan milloi beltz baiño geiago sartu omen dira, Zambia, Tanzania ta Congo'tik etorrita.

Bantu doakabeak, Europa'ko balratzailleak uztiatutzen dituzten. Bantu erriak eziñ-gaiña lan egin du, batez ere Sudafrika aurreratzeko, ta zertarako, ta ogi apurrekin gelditzeko.

Beltz auek oraindik ez dira konturatu, zama ori zapaltzaille oiek nolaz astindu. Ta azkatasuna lortzeko zer egin? Beltz danak ekintza arrunt batean jabeturik iritxiko dute, noski.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Jakingarriak

MUNDUKO KATOLIKOAK

Katoliko Elizak Europa'n eta Amerika'n dau indarrik aundiena. 225 milloi ditu Europa'k, au da, eunetik 49. Amerika'k 225 milloi katoliko ditu; eunetik 55 Amerika'n eta euneko 44 ta erdi mundu osoan. Ikusten danez Amerika'k eta Europa'k daukez mundu guztiko euneko 87 ta erdi katoliko. Ozeania, Aprika eta Asia'k 62 milloi; katolikoak 200 mille bakarrik.

KARMELDAR MONJAK ETA MAOMATARRAK

Beirut'en jazo zan 1962'garreneko Eguen Santuz. 9 monja karmeldar eldu ziran urian komentu bat jarteko asmoz. Katedrala ikusita mezkitara joan ziran. Mezkitak maomatarren elizak dira. Gizonezkoen tokian sartu ziran. Otoiketan egoan gizon-mordoa. Gizonak arrituta euren toki santua orrela loituteaz. Euren asarre bizia agertu eutsen monjatxu ezjakiñai. Buru egiten ebana «KORAN liburua irakurten egoan. KORAN musulmandarren ebanjelioa da. Irakurtea itxita ixil-eragin zituan gizonak eta onela itz egin eurai: «Ez bildurrik; emakumeok ez dira besteak bezelakoak: emakume santak dira ta Maria Jesusen Ama lez janzten dira. Mariaz mintzatzen dan KORAN-zati bat ikaurri eban. Gero Mariari errezatu egioela esan eutsen monjai. Monjak errosarioa errezatu eben eta amiatu enebean, gizonak ateraiño lagundu eutsen.

INDIA

India'k 500 bat milloi daukaz. 450 milloi inditarrak eta 50 milloi maomatarrak. Kristauak irugarren dira erlejiñoari buruz: kristauak 11 milloi bat eta katolikoak 7 bat milloi.

MEXIKO

32 bat milloi biztalne katoliko daukaz Mexiko'k. Apaizak 7 mille bat.

BRASIL

Brasil'en katoliko apaizak baiño protsestante buru-zuzendariak geiago dira. Brasil'ek 56 Obispo daukaz, baiña apaizutsune aundia.

BATIKANO BIGARREN BATZARRA

Batikano Bigarren Batzarra siñesmena sendotutzeko izan da. Gaurko mundua lurrera begira bizi da; lurreko gauzak maite ta billatzen ditu. Geroko bizitza agirian azaldu bear da. Batzarrean erabilli ta azaldu diran egiak siñismena sendotu egingo dabe kistar errian. Batzarrak katolikoak ez diran kristauai dei egin dautse. Katolikoak ez diran Eleiz asko dira batasuna nai dabenak. Jaungoikoak be nai dau. Kristo'ren artalde barruan batu danak. Bide ona izan da Kontzilioa batasun au egiteko. Ondoreak ikusten gagoz. Katolikoak eta protestanteak urreratuz goiaz Eukaristiari buruz ainbat gaitan. Urreratze geiago ikusiko dira aldiaz.

Batzarrak on asko ta aundiak ekarri ditu ta ekarriko ditu Elizarentzat. Barrizte aundiak egin dira erlijio ta Elizaren onerako. Geiago ta aundigoak ikusiko ditugu aurrerago seguru asko. Kristo'ren artaldea santututzeko bideak geitu ta zabaldu egin dira. Barriak sortu be bai.

GOIRIA

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

Eleizea ta Eleiz-Gizonak

Gizonok kaskar eta uzkorrak gara. Izakera makal eta bizitza laburra izaten dogu, ta gauzarik txikiena be bear dan lez ezagutu ta aztertzeko aldi ta astirik ez dogu izaten. Sarri be sarri gauzak txikerrago izan eta ulergatxago egiten yakuz. Txikertasunean dauken sakontasunak iges egiten dausku ta egia, egi osoa ezagutu nayean gelditzen gara. Aldetxu batzuk eta begi-aurrean agertzen dauskuen ganea ikusten doguz, baiña barruak iges.

Ikutugai ta ikusgai diran gauzekin ori jazoten ba'yaku, askoz geyago gogo utsezko, edo gure Orixe'k esango leuken lez gogoz utsezko *gauza ta jazokunakaz. Eleiza ez da gure eskuakaz ikutu ta gure begiakaz ikusten dan gauza, zeozer sakonago, barruragoko, izkutuago edo ostenduagoa da. Zer ete-da? Eleizea? Or, eleizetara juaten ikusten ditugun gizon eta emakumeak? Ez. Doipuru edo Aita Santua? Ez. Gotzain eta apaiz eta lekaide ta lekaime edo mojatxuak? Ez. Orrek guztiok batura Doipuru, Gotzain, jaupari, lekaide ta lekaime ta erritar siñismendunak? Ez eta orixe be. Zer ba? Jaungoikuaren erria? Auxe egitik urtxuago dabil. Itz bi orretan biotan batera indarra egiten ba'dozu, bai-edo; baiña itz biotatik bat bakarrik indartzen ba'dozu, naiz lenengoa edo Jaungoikoa, naiz bigarrena edo erria, orduan ori be ez dala egiz eta osoz eleizea esango dot. Eta auxe da argi be argi jarri nai dotana.*

Baiña irakasmen ori azaldu ta argitu baiño len oartxu batzuk egin nai ditut. Oin lau-bost urte dirala, an Inglaterra'n apaiz edo jaupari batek, ain zuzen be dominikarra dan Aba McCabe'k, urrengo esakun auxe jaurti eban argitara: «ELEIZEA USTELDUTA DAGO, GUZTIZ, USTELDUTA EGON BE». Irakurleak eta entzuleak ikaratu ziran. «Zer da au? Eta jaupari batek diño ori? Eta dominikarra dan apaiz batek esan be? Eta jaupari ori ez dabe dominikarrak euren artetik jaurtitzen? Eta Eleizako agintariak ez dautse zigorrik jartzen ori agirian esan daunari?» Eta ixiltasuna, besterik ez zan agertzen. McCabe Abea gizon on eta zintsoa zala ikusten eben, baiña aurrera zijuala eta bere esakuna ez ebala iñundik be guzurtzen.

Asi ziran orduan batzuk emen eta an Aba orren aurka, beste batzuk, barriz, bere alde. Bere aldezkoak zarata geyago egiten eben. Batzuk eta besteak euken egi osoa. Au be argi jartzeko asmoa daukat. Itxaron apurtxu bat.

Beste oar jakingarri bat. Gure guda-aldian 1937'gnean askotxu ziran gure aurka ebiltzanen artean, Eleizea gurekin ez egoala, Eleizea gure aurka egoala esaten euskuenak. Bai eta geurea ez zan, Gazteiz'ko Gotzain ez zan Gotzain batek, doibazkatu edo ezkomunikatu egin ginduzana be izan zan. Egun aretan ni Bilbo'n Isusi'tar Austin'en etxean, Jon Deunaren eleiz-alboan bixi ninzan eta itzaldi askotxu egiten nebazan txadon edo eleiza orretan. Bertako izkintokitik argi-argi esan neutsen entzule guztiai: Eleiza ez, eleizgizon batzuk, bai, dagoz gure aurka. Ori egia dan ala ez jakitzeko, lenengoz Eleizea zer dan jakin bear dogu.

Zer ete da, ba, eleizea?

Batikano'ko II'gn Batzar orokarrak irakasmen asko ta ederrak ekarri dauz gure ludi onetara. Bere irakasmen-artean lenen agertzen dana LUMEN GENTIUM edo (euskeraz) ERRIEN ARGIA da. Irakasmen orren asierako lerroetan auxe irakurten dogu. «ELEIZEA KRISTO'ganako IKURTON edo EZKUTAPENA DA, GIZADI GUZTIA JAUNGOIKOA'kin BATZE SAKONEAN ETA GIZONAKIN BATASUNEAN jartzen daun ikur ta egillea. Eleizea zer dan jakitzeko ez dot iñun orixe baiño argibide oberik aurkitu. Eleizea ez da eskuakin eskuartean erabilten dogun gauza, ezkutapen bat da, irudi edo alde bi daukazan ezkutapena izan be; bata Jaungoikoaganantzkoa, bestea gizonakanakoa. Jaungoikoa eta gizonak. Orregaitik esan dot or goratxuago Eleiza JAUNGOIKOAREN ERRIA dala esaten dabenak egitik urrun ez dabiltzala, itz bioi, Jaungoikoari ta erriari zor yaken indarra emon ezkero. Jaungoikuakin batu ta alkartzen gauzan ezkero, Eleiza ez da ustela, ez da okerra; gauza deuna da: ELEIZA DEUNA, alde orretatik beti ta osoz deuna, CREDO'an edo SIÑISTEN DOT'enian esaten dogun lez: Siñisten dot Doibatz deun orokarra. *Baiña beste aldetik gizonakin be batzen gaitu, gizon artean dago eta gizonak, bai, ba-dirala ustelak. Alde orretatik esan geinke ELEIZEA USTELDUTA dagola. Orregaz ez dogu esan nai gizon guztiak eta eleiz guztiak ustelduta dagozala, ez orixe; baiña bai asko obendi ta oker dabiltzala. Orregaitik esakun bat da Eleizearen izakera ta barrua aztertzen dabiltzanen artean: ECCLESIA SEMPER REFORMANDA. Beti barriztu ta garbitu bearrean dagon eleiza. Alde onetatik begiratuz Eleizea ustelduta dagola esatea, McCabe Abeak esan eban lez, ez da guzurra, egia da. Baiña Eleizea ez da alde ori bakarrik, ez da ERRIA bakarrik, ezta Jaungoikoa bakarrik be. Eleizea Jaungoiko ta erriaren alkartzea da, Jaungoikoa ta gizona ezagutuz eta maitatuz. Beti alkartuta dabiltz, ibilli be, biok, eta biok beti alkarrekin ibiltzeko egiña da Eleiza. Jaungoiko ta Gizon dan Jesukristo gure Jaunak orrela ta oretarako eregi eban bere Eleiza:*

Neronek, ba, dirauskat: eu atxa az, ta aitz orren ganean yeregikiat neure Batzarra: eta gaiztoki ateaik ez dozak beratzaz atxin garai-izango (Matai XVI, 18).

Jaungoiko-aldetik ez ikuskorra da baiña gizonen aldetik ikuskorra. Nun dago, baiña, Eleiza ori? Ementxe geure artean dago, GEU Jaungoikoakin eta GEU beste gizonakin Jaunagan lotzen garala. Geu gara Eleiza.

Nun agertzen ete-dira Eleiza orren asmoak, nun Eleizaren aginduak, nun Eleizaren elburuak? Ez eleizgizonakan, ez emengo edo ango Gotzain batzutan, ezta Doipuru edo Aita Santuak berak bere buruz zeozer esaten dauskunean, be; Doipuruak Jaungoikoaren izenean, Eleizaren izenean eta Gotzaiñak Doipuruakin alkartuta Batzar batean naiz Batzarretik-at irakasmen bat Jaungoikoaren irakasmen lez emoten dauskunean orduantxe daukagu Eleizaren irakasmena. Bide edo era orretaz ez da IÑOIZ Eleizea euskerearen aurka agertu. Eta EUSKERA aldez? Bai. Jayotz-errietako izkereen aldez jarri dan guztietan eta ori sarri be sarri egin dau Eleizeak. Paul deunagaz asi ta gaur arte. Bai eta Trento'ko Batzar Nagusi ospetsuan be. Eta euskera beraren alde? Bai-ta, Antxiña gure Goterki zan Calahorra'ko aginduetan, SANCTA SYNODO APPROBANTE, agindu zan eleizetan itzaldiak euskeraz egitea. Eta ori Pedro de LEPE jakintsuak agindu be. Lepe ori Salomon antzeko bat zala ikusten da erderazko «Saber más que Lepe» esakunan. Gaurkoz naiko.

URRUTIA'TAR GOTZON, M. B. S.

Eliza ta Euskal Kultura

Euskal Aurren Oporaldiak

Euskal aurren udarako etxeak ugaritzen ari zaizkigu zorionez. Esnatzen ari gera. Europa osoko lurraldetan, aurren opor aldien antolaketaei, garrantzi aundia ematen zaie. Frantzin bertan urtero, udarako aurren kolonietan, bi milloi neska mutillak biltzen dira. Gaiñera millaka monitor edo neska mutil laguntzalleak, pedagoji gaietaz jabetzen dituzte, garai ortan aurrak bear bezela ezitzeko. Frantzi'ko Estaduak azterketak egiten ditu ta txartel edo diploma batzuek ematen ondorean. Gai ortan Estaduak daukan ardura aundia da; bidalitzen ditu ere inspektoreak edo ikusle berexiak. Lege zorrotzak jartzen dituzte gauzak bear bezela eramateko; orregatik daude ondo antolatuak.

Ango giroa ondo ezagutzen dut. Frantzi'an eta Alemani'an egin izan ditut aurren koloniak eta Paris'ko Unibersidadean azterketak egin ondorean Estaduaren diploma edo agiria altxatu ere, Lurralde oietan, gai auek garrantzi aundia dutelako, ez dira arin jokatzen.

Euskal aurrei egun goxo batzuek igarotzeko aukera eman bear zaizkie. Aize osasungarria artu, lasaitasunean egon, euskal aurrekin bizi, gure «ama lurra» ezagutu ta egun zoriontsuak izateko eskubidea aurreratu. Ortarako nai ta naiez, udara-etxeak antolatu bear.

Gaiñera aurren nortasuna ezi ta aberastutzeko, udarako koloniak bearrezkoak ditugu. Jolasak, ibillialdiak, arremanak ezin obeak dira bear bezela zuzenduak diranean aurren nortasuna lortzeko.

Askok ez die garrantzirik ematen aurren udarako garaiari. Oker dabiltz. Eziketa aldetik aberatsak ditugu. Ortarako ezitzalle trebeak eta pedagojiaz jantziak bear.

Siñismen aldetik ere garrantzi aundia dute aurren koloniak. Bizitza jator batean oitutzen zaie ta giro ortan, bai alkarren arteko maitasuna, laguntza ta alaitasuna, alkarteko otoitza batez ere gabean sutondoan ta igande ta jaietako elizkizunak, kristauen siñismena sendotzen dute.

Euskalerriaren maitasunaren aldetik asko irabaziko dutela zer esanik ez dago. Udarako kolonietan, aurrak euskal giro oso osoan bizi dira. Izkuntza, abesti eta gure lurraren usai gozoa bear aiña artzen dute.

Udarako opor aldiak ondo antolatu ta zuzenduak daudenean, on aundia egiten diete aurrei, bai osasuna, siñismena eta euskotasun aldetik. Euskal lurrak ezagutzen dituzte, eta euskeraz egiten. Gutxi al da?

Aurren udarako oporraldien tokiak asko esan nai du. Etxe eiek ezin dira errege bide nagusi ondoan aukeratu. Aurrak pakea bear du ta ortarako toki paketsua onena. Orrelako etxeak billatzea ez da gauza zailla, oso errexa baizik. Erri txiki, paketsu, ta, politetan erretore etxe asko utsik daude bai Naparro'an, Araba'n eta Errioxa aldean. Baimena eskatu eskero bai azkar eman ere. Xos bat eman gabe, ara, nun dauden etxeak ugari. Ikusiak ditut Naparro aldean, toki politak eta ederrak, batez ere Artzibar, Longida, Urraul, Erromanzado, Orba baillaretan. Euskalerriak asko irabaziko luke, euskal aurren opor aldiak, euskal izandako baillara oietan egin ezkero. Aurren oporraldien bidez, gure kultura zabaldu dezakegu toki askotan. Aurrak euskeraz mintzatzen entzunez, ango semei esnatzen zaie ia illa zeukaten eukal nortasuna. Utzi edo galdu zuten euskal kultura, maitatzen asten dira. Orrengatik ona izango litzake ikastola bakoitxak euskal izandako baillara batean bere oporraldiko etxea izatea. Bide ortik, a ze aurrerapena artuko lukena gure kulturak. Gaiñera esan bearra daukat, ba daudela lurrak euskaldunak izandakoak aspalditako garaietan, aipatutako orren zerbait itxaro dutenak. Euskalerri ondoan ba daude lurrak euskaldunak nai dutenak izan. Trebiño ta San Zadornileko baillarak, Araba'ra itxuli nai dute; Menako baillarak berriz Bizkai'ra. Gutako askok, zoritxarrez, gauza oien ezjakinean bizi dira.

Aurren opor aldientzat ezitzalleak sortu ta pedagoji berexi batekin jantzi bearrak ditugu. Ezin deguna egin da aurrak nolanai artu. Nazio guztietan, aurren monitorrak antolatzen dituzte. Bearrezko lana da gaiñera.

Emen laguntza ori, euskaldunok, euskeraz ez degu Estaduaren aldetik izango. Orduan gure aldetik egin bear baita ere Elizaren aldetik. Ba daude eskubideak. Egin bearrezkoa gaiñera. Ez da ain zailla; udarako pedagojia eman, azterketak antolatu ta agiri bat banatu. «Mandos Intermedios»en antzera, au bera egin leikena da. Ezin gerana da, basamortuan ta sasitartean egon, sorgiñen ta basajaunen antzera. Noiz konturatuko ete da eliza ekintza onen garrantziaz? Or dago koxka. Bear ditugun buruak ba genitu, aspaldi egina zegon.

Aurrak gurasoenak bakarrik dira ta Elizak laguntza ori eskeiñi dezaieke gurasoei. Lendabizi gurasoekin batean udara lekuak sortu, aurren nortasuna ezi, euskaltasuna sakondu, siñismena aberastu, euskal elizkizunak antolatu. Igandetan euskal meza ederrak egitea, euskal aurren koloni oietan bear bearrezkoa deritzaigu. Aurrak irabaziko lukete kristautasun aldetik eta euskal izandako lur oietako jendientzat, gure nortasunaren azalketa aundi bat izango litzake.

Euskal aurren opor aldiko etxe ugaritze orrek ba du zer ikusi aundia gaurko euskal giro zabalkundearekin. Egokia izango litzake ere, etxe oietan, ikastoletan ibiltzen ez diran aurrak ere artzea. Toki askotan oraindikan ikastoletara joatea etzaie danei egokitzen eta udaran gutxinaz gure kulturan bizitzeko aukera ori eman bear litzaieke. Oiu bakarra zabaldu bear genuke alderdi guztietara, al degun eratara, «gure kultura zabaldu».

Gure eskuètan dago, Euskalerria sendotzea ta zabaltzea.

LATXAGA

CASCO VIEJO

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

TENDERIA

Boutique
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

Txori eta egaztiak olertian

Txorrotxio goiztari ta illunabarretako ontz-karraxi ta, gautxori agurrez, biziak, dei dagi egobidezko gau-eguneratze, izate bereziz! Txori ta egaztiak oso aipatuak dira mundu guztiko olertian. Atzerrira begiratuz, gaztelar izkuntzan, Garcia Lorca'ren gautxori ospetsua; Garcilaso'ren lertxun, kurrilloak; Melendez'en uso urrumakariak; Becquer'en elaiak; Jorge Guillen'en urretxindorrak; Cid buruzagiaren bela beltzak ta, abar. Pantzetarren artean, Alfred Vigny'ren «Eloa» ko arrano zauritua ta kolibri txikia. Ingeles izkuntzan Keats, Milton, Wordsworth ta Colerige'ren urretxindor iakingarriak ta Edgar Poe'ren erroi beltz ta bildurgarria; Walt Whitman'en sinsontea; ta, zelan itzi aitatu barik Heine doistarraren Ipar aldeko zisnea ta bere urretxindor intziritsua?: «Ta, nere intziriak —eta urretxindorren— abesti samurrak bat egiten dira».


Atzerrikoa itzi ta, begiratu daigun euskal alorrera ta, emen, bertsolari ta olerkari artean ta baita, errikoi abestietan, txoribidez osatutako bertso ta poema, kantu eder, zoragarriak daurkiguz nunai. Margo ta mueta askotakoak dira txori ta egaztiok. Asturu gaiztoko, zori txarrekoak batzuk; besteak, barri ona dakarren txori bedeinkatu eta apalak. Beraz onakaz eta txarrakaz arkitzen gara txorietan... arranoak, beleak, erroiak, saiak... auek dira, ustelaren, eriotzaren, indarkeriaren adigarri, eredu ta gai ibillienak; bestetik, txindorrak, elaiak, enarak, usoak, txori kutun ta maitekorrak dira, gure olerkari ta erriaren aoan...

Gero beste batzuk oso aitatuak dira; zozoak, bidegarruak, egaberak, antxetak, kaioak, karnabak, okillak, pospoliñak, ta, aztu eziñeko urretxindor emeskoia ta, zikuiña torrezalea eta, au arrigarria! Fenix txori mitotiar ta bakarra loratu zan euskera ta Euskalerri aldezko bertso maitagarrietan. Entzun Otaño'ri: «Noiz izandu zan, nun eta nola-euskaldunen asiera?—Ipuñak dio Fenix bat dala— eta beti Fenix bera—: Egazti ortan O, euskaldunak!—gu bakarrik bizi gera»—. Beste aapaldi batean onela iarraitzen dau, esanaz: «...Ala jauregi goitienetan— nola bazterreko bordan— naiz etxerikan apañenean— edo mendiko txabolan— itxasoetan ta leorrean— ondo ta gaizki denporan— berez euskaldun garbia dana— ez daki ukatzen nor dan»—. Auxe da gure neurtitzbidezko egazti bakan, ta gorena, bertsolari ospetsu bat betikotu duena!

Goazen orain Orreago garaipen ikusgarrira; Altabizkar'ko kantuan, Erroldan ospetsuaren gudaroste aundia, ondaturik Ibañetako burruka gogorrean...: Bizirik atara diran arerioak igesi doaz, igesi...» —Zenbat dira? Haurra kondatzak ongi— Hogoi, hemeretzi, hemezortzi, hamazazpi, hamasei, hamabortz, hamalau, hamairur— hamabi, hameka, hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei, bortz, laur, hirur, biga, bat». —Bat; ez da bizirik agertzen gehiago» Akabo da». «Eta, gabaz, arranoak joanen dira aragi puska lehertu oriek jatera». «Eta, hezur oriek oro xurituko dira eternitatean».

Gure edesti edo kondairan ba da beste txori entzutetsu bat: belea. Alostorreko, belea. Ondo ezaguna ta ez dago zeaztasun bearrik. Ona emen Ion Etxaide'ren neurtitzez: «Alostorrea, bai, Alos-torrea— Alos-torreko zurubi luzea! Alos-torrean nengoanean— goruetan, bela beltzak —Kua! Kua! Kua! Kua! leioetan... —Ai, au mindura beltza! Au, nere lotsa!— Alabak negarra ta, —Aitak lur otza!

Negar-ikurrok itzi alde batera ta goazen apalago, eder, ta, atsegingarriago diran txorietara, ta, or arkituko doguz bakoitzaren doiñu ta mintzairaz, aberastasun ugarian... Neurtitz bikaiñetan or daurkiguz, Arrese Beitia'ren elaiak; Zaitegi'ren kardantxilloa; Erkiaga'ren uso ta zozoak; Luis M. Mujika'ren egabera; Mitxelena'ren txindorra; Loramendi'ren enadatxo zintzoa; Lizardi'ren txolarrea (Paris erdikoa) Lauaxeta'ren txindorra ta abar; izenez aitatzen txoriak dira auek. Baiña badira beste batzuk, asko, txori izen utsez azaltzen diranak; zeintzuk diran eztakigunak.



KUKUA

Baiña ba'dira kaiola txoriak; txori gaixoak, gizonaren maltzurkeriz azkatasuna galdu ebenak ta orrein barri abesti eder baten daukagu:

«Txoriñoak kaiolan —itunik du kantatzen— duelarik zer jan, zer edan —kanpora du desiratzen— Zeren? Zeren? Libertatia zeñen eder den!

MUNIATEGI'TAR SABIN

USO BAKE-GEZNARIOK

Uso bake-geznariok,
erruki zakidaze!
Aspaldion beti bait-dot
biotzean oiñaze.

Poza galdu yatanetik,
bakarrik gelditu naz;
estu darabilt aranasa
ilten nauan itunaz.

Sagartzak lorez darraie
Jorrailgo egunetan;
neskatxak jolasez dabiltz
bedar bako landetan.

Zelaiko gazteen artean
galdu yatan bakea.
Orra nun dakusdan barriz
nire lengo maitea!
(1960, BITARGI)

ARANTZIBIA

«Etorki» Taldearekin

Nere seme baten txalaparta-jotzaille lagun zalakoz, beasaindar gazte oni lagundu nairik ibilli gintzaizuen igazko urte bukaeran. Patzolak billatu, txalaparta-tramankulua egin eta gertatu. Joan zan beiñepein, ta Paris'dik bidalitako eskutitza jaso nuan lenenlenengoz.

Ilbeltza'ren 11'gnean izan zuten lenengo agerkera Paris'ko Thomson Lantegi aundian. «Geienik —esaten dit— langilleekin alkarrizketa girotsu bat izan zan euskal erriaren sorkerari buruz».

Egun biz geroago, 13'gnean, ORTF'ek (Frantzi'ko Irrati eta Telebision) emandako telebisio kultura saio batean azaldu ziran. «Telebisioko teknikoei ernagarri eta arrigarri izan zaie txalaparta, bazter guztietan nabarmen. Baita alboka ere».

Nere adiskide onek, Modesto Lasa'k, txistua, dultzaiña, tobera, alboka eta muxukitarra ere jotzen ditu. Baiñan «Etorki» taldea beste zenbait euskaldoiñuz, dantzaz eta abarrez osatua dago.

«Le Monde»k zion: «...Philippe Oyhamburu a puisé dans le patrimoine du Pays Basque avec la désinvolture attentive d'un Moisseiev...»

Eta, onegatik, Paris inguruko Ikastetxe eta Antzokietan jardun ondoren, Ilbeltza'ren 17 eta 24'gnetan, orri batek dion bezela, «Théatre de Paris» en dira «LES BALLETS et CHOEURS BASQUES 'ETORKI', avant leur départ pour l'Amérique».

«Berealdiko garaitza —dio—. Ez bai-zuten askok iñoiz entzun gure antziñako doiñurik, ikusle izugarritza ura guztiz ernaituta, dar-dar egon zan. Eta lenengoan, beintzat, ikusle bereziak egon, Paris'ko agintariekin, euskaldunenak, telebisioa eta abar...»

Paris'en erakustaldi ugariak eman ondoren, egazkiña... eta ara nun jasotzen detan Otsailla'k 9'gnean Cape Town'en (Ciudad del Cabo) bidalitako tarjetatxoa. «Agur bat Sudafrika lurralde auetatik. Emen ere ez gera gelditzen. Atzo, Kimberlein'en saiatu giñan. Eta gaur egazkiñ edo aeroplanoan 900 km. 50 minutun eginda Ciudad del Cabo'n gaude». Eta: «Ba-daukat zerbait bidaltzeko, periodiko kritikak, alegia...»

Baiñan idazki au luze dijoakidalako, beste baterako uzten det bidali dizkitan izpar txit interesgarriak zuei, ene irakurleoi, emateko. Atsegin izango zaizkigulakoan nago beroiekin luditik zear ibiltzea.

Bukatzeko auxe: «Etorki» taldea, dantza, soiñu eta abotsez, ogeitamar bat lagunek osatzen dute, emakumezko eta gizonezko. Euskaldun auen ausardia ez da makala. Bederatzi illabeterako ibillaldi edo txangoa, Amerika guztia beetik goraiño igoko dutelarik. Baiñan kemenak dauden tokian beste zerbait geiago ere ba-dago. Eta onegatik, iduritzen zait eragozpen guztiak menderatuko dituztela. Geldi bedi arazo au bere balioaren eskutik. Neri ez dagokit besterik nere opa beroenak bidaltzea baiño: Jaso ditzatela, orain arteiño bezela, txalo ugariak eta garaitzak. Baita ere onela ibiltzeko dirua. Zer besterik opa bear genieke, gure izakera mundu guztian edatzen, zabaltzen dijoazten euskaldun trebe aueri?

UXOLA

SOBERANO

¡gizon artekoa da!



GONZALEZ BYASS

IPAR EUSKAL-ERRIA

Mintzaldia: Ill onen 4'an, Deusto'ko Ikastetxe Nagusian.

Itzlaria: Ramontxo Kanblong.

Kanblong, inginadorea, Prantzi'ko ikastetxe bateko irakaslea. Baiña ainbaten artean talde bat sortu ondoren, Ipar Euskal-Erriaren ekonomian ari da, iñoiz ikutu bageko sail ori ikasten eta irakasten, Euskaldunentzat ain garrantzitsu dan ezkero. Bere irakaskintza Asparne'n azaltzen dau, ta ekonomitzaz asko idatzi be.

«Ipar aldekoak eta Ego aldekoak ez gerade azki esagutzen»: onela asi eban bere mintzaldia Kanblong jaunak.

Ipar Euskal-Erriak 2.800 kms.² ditu ta 220.000 biztanle. Geienak, itsas aldean.

1840'gn. inguruan, ugaritu egin zan erria: esate baterako, Baiona, 40.000 biztanletik, 60.000'raiño.

1840'gn urte au, garrantzi aundikoa da, bai Ipar eta bai Ego Euskal-Errian; 30.000 bizt. gitxiago egozalako an urte orretan; beratzen asirik, 1900'gn urtean.

Naita R. Kanblong ekonomista izan ez, joan diran amar urteetan, beste talde baten sarturik, eta Baiona'ko «Chambre de Commerce» ta «Sindikatoak» lagundurik sail orretan ari izan da.

Ipar Euskal Errian, urte onetan, % 41,2 lan gabeak ziran (batez ere jubilatuak).

INDUSTRIAN

Lantegiak: 500 Langilleak: 18.000.

Bokale, Lapurdi'ko Estadu zarretatik kanpora egoan. An egin ziran lenengo lan gogorrenak, eta lantegi xeenak.

Landes ortan orain ere, euskaldun asko bizi dira, ta leku askotan ere, euskeraz egiten dabe.


Ipar-Euskalerri'an, bi lantegik bakarrik, bakoitzak milla langilletik gora ditue. Lantegi aundi bi oneik. Estaduarenak dira, ta gudaarmak egiten ditue, ba Prantzia'k arma asko saltzen dau beste aberrientzat. Lantegi bi onek ez dabe zer ikusirik erriagaz: Ondo ordaintzen dabe, ta beste ezer, euren ustean, ez dabe bear ango langilleak.

4 lantegi: 500 langilletik gorakoak: Kimia ta zapatagintza.

25 lantegi: 100 lang. gora.

50 lantegi: 25-50'erakoak.

Ikusten danez, lantegi gitxi dagoz, Ipar Euskalerrian.



Ekonomi saillean, garrantzitsu izan ei'zan 1789'gna. Garat anaiak egindako alegiña Euskalerriko zazpi zatiak izen bategaz artzen: «Phenizia» izenagaz, euskaldunok Fenizia'tik gentozela uste eben-eta. Ustego oneik, Paris-etik atara ebezan.

Prantzi'ko laterri edo Estaduarentzat ez dago iñun, lege aldetik beintzat, Euskalerri'rik. Bakarrik «Atlantiko Aldeko Pirineak» ditu ezagun, eta izen onetan ez da bakarrik Ipar Euskalerria sartzen. Orain Ikastetxe Nagusi bat egin nai ei'dabe Pirene Alde onetan, baiña antza danez, Baiona'n ez dago indarrik, eta orregatik Pabe'n (Paun'n) ari dira, ta badakigu uri au Euskalerri'tik kanpora dagona. I. N. S. E. E.'k diñonez, Euskalerri'rik ez dago: ez dau bizirik estadistika aldetik.

Ipar Euskalerri'ko biztanleak, XIX ta XX gizaldi edo mendeetan oneik dira:

XIX - mendean, 90.000 jende joan ziran Amerike'ra. Arazo onek ikasteko Etxeberri'k «Euskalduna» aldizkaria sortu eban, baiña lan sakon gitxi egin eban.

XX - mendean, katolikoen sindikatoak diñoenez, urtean 2.000 jente, gitxi gora bera, joaten ei'dira Ipar Euskalerri'tik kanpora; ta ez bakarrik Amerike'ra; geienak Paris'era, batez ere emakumeak.

Estadistikaz, orain, Zubero, Pabe'ri lotuta geratu da. Beste lurralde biak, Baiona'ri, ostera. Onetan estadistikak zenbaki onek emoten ditue:

20 urtez betik / mutikoak: % 34 - neskak: % 33.

20 urtez goitik / gizonak: % 21 - emakumeak: % 12.

Neskak ez dabe baserrietara ezkondu nai. Kalean, naita iñoren menpean edo ol aundietan, abere lez lan egin bear, obeto bizi ei'dira. Origaitik mutil-zar asko dago, batez ere Ioldi'aldean. Eta zenbat moxkor!

Euskal-Erria, Estaduak, turismoarentzat gertau nai dau. Ta egia esan turismoak jende asko ekarri ditu euskal alde ontara, baiña gaztediak, bizia irabazteko alde egiten dau, ta ez apaizak esan eben lez, euskalduna txoko barrien zalea dalako, bere lurrean bizi-biderik ez daualako baizik, eta gero, zartzaroan, jubilatuta, azken bizi aroa emotera, emen baztertzen da, bizi arnasa erriari kenduz.

Onek dira estadistikak:

urteak	itsas-aldean	mendian	
1876	60.000	100.000	
1911	80.000	98.000	
1921 (I'go guda buka) . . .	85.000	90.000	(berdintasuna)
1936	100.000	87.000	
1968	140.000	60.000	

jende langillea = 36.000
jende gaztea = 90.000

1962: 600 biztanleko

200 gazte.

Zertan egiten dabe lan?

1.—Burnigintzan . .	4.000 lang.
2.—Etxegintzan . .	3.600 lang. (kanpokoentzat, turistentzat, etabar).
3.—Kimian	1.200 lang.
4.—Janarigintza . .	2.000 lang.

Janarigintzan, lantegi geiago bear litzakez, baiña ez da ezer egiten sail orretan, edo ori lortzeko. Esate baterako, arto arnari edo fruitua, mundukorik onena da. Baiona'n ikusi leikez belar-zuloetan, eta andik kanpora eroaten dabez.

Zapatagintza be oitura zarrekoa: Lenago 1.800 bat langille egozan. 1966'gnean 1.600 langille, Orain: 600 bakarrik. Bi etxe itxi ditue.

Baiona:
lantegiak % 70
langilleak % 75
Euskalerri guztian onela eziñekoa da, aldatu bearrezkoa.

Asparne:
2.550 langille
Etsegilleak geienak.

Maule:
1.500 langille
Kautxo lanean ikasteko ikastola bat edegi dabe. Alboan asi da industria txoko bat; oso aula. Baiña ez dago gazterik lan egiteko, ta 300 edo 400 portuges etorri dira bertara lan egiteko.

Nekazaritzan:
Ipar euskaldunak laborantza esaten dabe. Gitxi gora bera 20.000 nekazari. Bardintsu industriagaz.

Apaizak orain asi dira konturatzen, laborantzak ez dauala salbabiderik euskaldunentzat, baiña gitxi egiten dabe.

Turismo, Aministargo, tabar = 40.000.

Estadua konturatzen zan lez, lekua izateko, arazo bat izango zala, turismoarentzat baitu ditu lur arek. Arrazoiak? Bazter politak dirala, pena izango litzakela loitzea, tabar...

Turismoa, batez ere Donibane-Garazi aldean egiten da, ta Intxauspe jaunak, bere bankuaren bidez alegin guztiak ortarako egiten ditu, dirua emoten dautse-ta.

Ekonomia aldetik, eta Paris'ko ekonomistak ba-dakie, Ipar-Euskalerria ondo joateko, bide bat baiño ez dago: Ego Euskalerria'gaz artu emonetan asi, ta jo. Ango salbasioa emetik joan bear dau, ta orretara talde batzuk gipuzko aldean ari ei'dira artu emonetan ta tenikak ikasten.

* * *

Mintzaldi onen ondoren, alkar-izketa labur bat izan genduan, eta poztu giñan onako artu emonagaz.

Ia sarritan jazoten dan bardin. Ez litzake txarto etorriko.

GARATEA

GURASOAK

Euren seme-alabak jayo diranetik guraso onak izateko, bearrezkoa da gertatzen asitea. Alan be, gure eritxiz, askoz lenago senar-emazteak eitetu, moldatu, trebetu bear dira. Baita be esan leiteke euren semeai, oneik be txikietatik geroko guraso onak izateko, irakatsi bear leuskioe euren bizitzaren gertagai, ikaspide, oiturakin. Ama, sabelaldi ta umedun daneko, bere umetxuaz arduratu bear da. Sabelean aurrak magnetofon baten lez amaren biozketak artuten dauz-eta. «El arte de amar»en From'ek ama-maitasuna ezti ta ezne langoa dala diño. Txikitxua azi ta iraunteko amak emoten dautson janari ta ardurea eznea da. Eztiak esan gura dau maitasuna, gozamena, zoriontasuna biziagaitik. Ezti au emoteko, ez da bakarrik ama ona izan bear, baita notin-persona zoriontsua. Ba-dakigu ama guztiak euren semiei eznea emoten dakiela, baiña bildurtu gaitekez ea dakien ala ez eztia emoten, orretarako eitetu ta trebetu bear diralako eurak.

Gaurko gizonen asmakizun eta ikuskizuna korapillotsuak ta naspilduak dira; gizarte aldakarrian bizi gara, dana oi-dabil estu-aldi eta aldaketaldian. Orregaitik gurasoak, etxe-ontzia ez daiten ondatu, ainbat asmakizun eta eragozpen garaitu bear dabe. Aita ta amak jakin bear dabe: euren semeak bideratuten ikaskundeetan; erlijo kristautasun kementsua eurei biotzeratu; gidatu euren irakurketan; ezagutu euren sikoloji gogo izamena; askatasun iardeztzaillerako eurok eratu...

Jakite oneik eztira bat-batean lortuten, seme-alabakin luzaroko alkar-izketaz jadetsiten dira. Eta seme-alaba errudunak zigortu bear ete dira? Ez dot uste erruiñekea izan bear danik muga ta elburua, bidea baiño. Ta ezarri lenbailen, mendekaldia ez izateko. Orain zigor-gogamenak aldakuntzea egin dau. Antxiñatik esaten zan.: «Izkia odolaz sartzen da». Orain, bederatzi mille sendiei, egindako azterpenean, eunetik emeretzik gaiñetiko eginbearrak, lan eskolak kentzeko erantzun eben; eunetik 25'ek zigorketak. Beste 25'ek eunetik, zigorrik iñoizbez.

Jakite askorik ezta bear semeak mundura ekarteko, baiña bai azi, eratu, mendu ta bideratzeko eurak, lan gogor, buruauste, ardura ta askakizun aundiak bear dira.

Ta zer eta zelangoa izango da aitaren eginkizuna? Guztiz bear-bearrekoa ta garrantzi andikoa. Mutilla azten doanean, ama-albotik apurka apurka aldenduten da; orduan aita izan bear yako lenengo lagunik onena; bere gastetasunean aitaren egape, kemen ziurtasun ta adimena bear ditu. Orrez gaiñera, amak berak be senar langille, egikaria bear dau. Onek eguneroko lana ondoren, eztaiela esan seme-alaben ezieraasmakizunak amarenak bakarrik dirala, ta orkonpon, onela amaren babesgabe bakartasuna gaiñeratuaz. Aita, semiei, jainkoalango alguztidun bat iruditzen yakela ez aztu; ta uts emon, iruzur eurei egitea txarto dago.

Ama nagusi zale ta aita larregi aitatar eztira onak.

Ta zer esango dogu askatasun eta aginpide buruz? Asko esango geunke orrezaz aita-semien alkarkizunetan. Laburkiro, oiñarri asigai batzuk adierazten doguz. Lenengoz aitari iñoiz ez yako aiztu bear, bere semea, naiz ta txikia izan, notin persona bat dala; ta beroneri askatasuna kentzea ezta ezitea ta moldatzea.

Bestaldez, erabilliz eta egiteratuz askatasuna ezi ta eratzen da, ta dana aukeratuta artuten dauanak ezin dau ez erabilli ez egiteratu. Gurasoak, euren seme-alabai askatasun-erabiltzea erreztuten daben ezarkerak emon bear dautseez. Ta aitatar larregia kendu. Arrazoizko eta adimendun alkar-izketak seme-alaba gazteekin aita-amak euki bear dabez. Buruzale, nausigotiar gidakuntzak ez dau on egiten. Ta, zentzumena emon bear yakola bizitzari beti gogoratu. Ta zentzumen au, Jainkotasuna ta kristautasuna izan bear da.

LETONA

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

Bilbo'ko Academia de Ciencias Medicas'en sortzetik 75'garren urtea beteten zalako, ta Deusto'ko ta Bilbo'ko Ikastola Nagusien laguntzagaz, Bazkun arek berak antolatuta, Bizkai'ko Aldundian ospatu zan Euskal-antropolojiaren Lenengo Astea, Erki onetako eta Bilbo Uriburuko Batzarren babespean, Lenengo Aste orretako itzaldi eta mezuak argitalzeko agindua «La Gran Enciclopedia Vasca» argitatzailleari emon eutsoela, 25 gaitik gora aztertzen dira, ara batzuk:

Kondaira aurreko euskal-gizona ta bere gaurko egozpena.—Jose Maria Basabe'k egiña.

Odolezko agerpenen izatea gure errian.—Au, Jose Luis Goti Iturriaga'rena.

Sikolugu arazoak, gizartekoak eta legezkoak, Euskal-Erriko sorginkeari buruz.—Julio Caro Baroja'rena.


Euskotarren pentsaera ta arpegikera.—Jose Manuel Barandiaran'ena.

Euskal-Sikologiaren bidez, Bertsolarien argitasuna.—Manuel Lekuona'rena.

Euskal-abestien morfologi ta berezitasuna.—Francisco Escudero.

Gure Erriak legeari daukan zentzuna.—Adrian Celaya'rena.

Kondairako mende bitan, euskotarrei begira.—Andres E. de Mañarikua'rena.



Lan bakoitzaren amaieran, itzulpen-laburketak dira, euzkeraz, gazteleraz, prantzeraz, ingelanderaz, alemaneraz, errusieraz eta japoneraz. Idazti garrantzitsu onek, euskeltzale guztien artean arrera ona izan dau.

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA.—Apartado n.º 1.510.—BILBAO

ERRIETAKO BERRIAK

Tolosa

JOAN DIRA.—Iñauteriak, joan, Datorren urtekoeri deika. Iñoiz bezin obeak izan ditugu. Eta gaztedia alai jolastu da. Euskerak ere tokia izandu du, guk nai ainbatekoa ez ba'da ere, baiñan saiatu gera bear dun tokia ar dezan, euskal oiñarria dutenez Iñauteriak.

Euskerari zegokionez «Udaberri Konparsa» eta «Sukaldariak» izenez irtendako konparsak berezitu dira.

IGANDEETAKO OGIA.—Gure etxekoandreen jaieroko buruaustea auxe izaten da: gaur zein ogitegi ote dago zabalik? Ogitegiak kurpil edo «ziklo» batean irikitzen dira, onela:

1.—Lazkano'k . . . . Konbenio Kalean
2.—Etxezarreta'k . . Korreo Kalean
3.—Market'ek . . . . Kale nagusian
4.—Orbegozo'k . . Plaza Berrian

Au gorderik, beraz, etxekoandreak ez dute besterik aurreko jaiean zein egon zan irikia gogoratzea, urrengoan zein egongo dan jakiteko.

LIBURU BAT.—Eta jatorra. Gure errikide, eta zer esanik euskaltzale degun Justo Mari Mokoroa'k egiña. Izena: «Lengua Vasca de hoy y de mañana». Zertaz? Euskera batua? Bai?, ez?, nola? Artu liburua. Irakurri ongi eta aztertu. Ez zaizu damutuko. Euskaltzaleen semea, euskaldun betea jaioa, gutxi izango berak bezin obeki euskeraren ezkutuak dakiena. Erderaz eta Tolosa'ko «euskera pollitean» egiña. Nik irakurri det, eta nere zorion beroenak damaizkiot.

GOIZ ARGI.—Dirudienez Otsailleko zenbakia baitu egin dute. Baiñan AGUR au artzen dezutenerako zuen eskuetan izango dezute Epaillekoa.

ERNANI'KO IKASTOLEN ALDE.—Berebiziko jaialdia izango da Jorrailla'ren 16 gn. Galarreta Jai-Alai pelota lekuan. Zer-nolako jaiak izango ez dakigu. Bai ordea oso onak izango dirala, asmoa bezin ona, eta orregatik jendetza ugari bilduko dala. Urrengoan geiago esango.

UDABERRIA.—Loratsu etorri zaigu. Udaberria izan urtearen gaztaroa. Gaztaroak damaio itxaropen bizitzari. Baiñan ama zaion bizitzak ernaitu dualarik lirain eta eder, zentzuz eta adorez bizitz-izatearen barruan murgildu nai luke. Bear dan zabaltasuna emanik, giro onean. Babesturik giro gordin uneetan. Loreari bezela gaztediaren biotzarentzat zentzua da bere zaitzaille oberena.

Gazteari erakusten ez diona, loxintxatzen duana demagogo ona izango da, ez benetako maitale.

Aupa Udaberria! Eta gaztedia? Neurriz eta begiz! Onela bere emaitzak ederrak, guztion onerako.

«AÑARBE» JOAN ZAIGU.—Goian bego guda lagun, ondorio lagun ta idazle lagun izan nuana. I, «Añarbe», AGUR'en ere lankide, joan aiz ludi obeagoara. Euskera maite ukan. Baita egia ere. I intzan, kezkik gabe, errietako berri-emaille onenetakoa. Euskerak ire luman gaur gutxik daukaten gozotasuna zikan. Zenbat naigabetu intzan batasunaren izenean egundo euskal erriak ezagutu duan banatze aundienen ondorioak ire erri maitean ikusi itukanean. Barkatu akiek gaitz ori ekarri digutenei, agian asmo txarrez ez ziteken egingo-ta. Baiñan ez nikek nai zerutik beera begiratzen dekanean, ez iñolaz, ire lagunak izan giñukan euskal idazleak zabarkeriz jota ikustea. Saiatuko gaituk zaiñetan odola daramagun arteiño. Euskeraren onerako; ago gure oroitzez gu ere ire oroitzez izango gaituken eraberean.

Agur adiskide Korta, agur «Añarbe», gorde eiguk tokitxo bat or, eta egun aundirarte.

TOLOSA «ZERKATUA».—Euskera jatorrean, inguratua dago. Guda batean bezela inguratua. Goitik eta beetik. Zeruz, urez eta legorrez. Eta ez datozte kañoiekin eta bonbekin. Zikiñak menderatu gaitu. Zikiña ta zakarra nagusi. Mundu guztian erririk zikiñena, gurea. Zerutik, Amaroz'ko Paper-Ola'rean tximiko keak zabaltzen duan laiñoa eta kiratsa; urez, Oria ibaiak daraman aparra eta nazkagarrikeria; eta legorrez, gaua datorrenean Udal-Etxearen aginduz eskaratz-aurre guztietan lagatzen diran etxeko zakarrak, zakur eta katuen jostagarri... eta, geienetan, gau-ganberroen atsegingarri.

Tolosa'k kiratsa dario alde guztietatik. Eta lotsagarria da, bestela gure jaioterria erri politenetako bat bai-da. Ez ote degu iñor gure urian lenagoko txukuntasunera biurtuko gaituna?

ANTZERKIAK.—Bigarren Antzerki-Sail Emanaldia izateko da aurten ere, CIT'en ardura pean. Igaztik dakizutenez, euskeraz eta erderaz izaten dira. Jorrailla'ren erditik Loreill erdi inguru arte iraungo du.

Baiñan aurten beldur naiz euskeraz dagokionari gaizki xamar ez ote geran ibilliko. Aurre-batzarrera erderazkoak azaldu dira geien, euskerazkorik ea iñor ez. Euskerazko taldeak lo daude. Eta erderazkoak jabetzen ba'dira, nori eman bear diozute, adiskideok, orduan errua?

Eta ontaz ari geralarik, zergatik poto egiñik lo tolosar antzerki taldea?

DANTZA IKASKETAK. — 1969'garren urtean asi ziran neskato-mutikoei dantza ikasketak ematen. CIT'en ardurapean ta Agirrezabala tar Antxon dantzari trebeak emana. Aurten, 70 ikasle ba-dabiltz. Asi zanetik eundakak ikasi dituzte gure dantzak.

Folklorekeri utsa izango da «ultra» batzuentzat. Guretzat lan txalogarria. Urte askotan onela jarraitu, adiskide «Txepe». Eta zorionak!

UXOLA

Bermeo

Arrantzaleak kezkatsu gabiltz aspalditik, idazlan bi bialdu dodaz AGUR'era baiña ez dira argitaratu, ez dakit zergaitik eta lengotan gelditu naz.

Aurrerako idazlanean esaten neban, Canarias aldetik egin dogun egotaldea, lotsagarria izan dala arraiñaren balioa ikusita. Amar urteren barruan, bardin balioa arraiñak. Nun ikusi da ori? Ba gu ikusten gagoz. Eta gauz onek olan dirala, bizimodua gora ta gora neurri barik.

Beste barri bat, seguro socialak gorantz doazela da. Au jakiñik, txalupak geldiketa txiki bat egin dabe ea asmo ori aldatutzen dan, baiña erantzuna beti bezela lasai egoteko izan da, Madrillen konponduko dabiela eta aurrera beti. Irakurle maiteok, aspertu gara itz bardiñak beti entzuten, itzak onak apaizak bezela baiña eginkerak diabru bezelakoak. Sarritan entzuten doguzan itzak onexek dira, obligaziñoak ba doguz baiña deretxoak noiz eukiko doguz? Nere aitari Montepio'ko sasoia jorraillan elduten jako, eta jakin guran gagoz zeintzuk dirazen bere deretxoak, baiña jo Bermio jo Bilbo, iñok ez dausku ezer argituten.

Antxoa sasoia eldu iaku, berriz bildurra etorri da guregana. Igaro diran urteetan lez, arrantzaleak bildurrez izaten gara sasoi onetan. Danok dakigu arrain ori Frantzi'ko kostara sartzen dala, eta orrexegaitik frantzesak, kosta-jaboliak ipinten dauskuez euren sei millako neurriak zaintzeko. Ori dala ta, aurten bere lau txalupa izan dira arrapatuak.

Bermio'n iru urteren barruan amaika soziedade egin dira. Batez bere pozgarria da danen izenak euskeraz jarrita egotea. Izan dagiazala ba, erriaren eta euskeraren onerako.

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Zestua

Joan zan igandean —eguna 5— urteoro antzo, ta oitura dan lez, Arrua-goian biltzarturik, aurten ere alkartasunaren billera-jaia ospatua dute. Bazkari ta alkartasun auetatik, otordu utsean gelditzen ez dan zenbait antolamentu ta eratze, lortu eta aurrera ateratzen dira. Aurten agian zerbait eratzeko asmoak ba-dituzte.

Nere belarrietara olako zurrumurru ta albisteak elduak dira, ta ziuraski ez da dana gezurra izango. Omenaldi bat apika? Entzun detenez, bai! Arrua'ko seme ospetsu bateri omenaldi bat eskeiñiko diote. Nor da erriko seme aipatu ori? Askotan entzun oi izan degu gure errikideren bat, munduan zear gaillen eta estimatua daukatela. Maiz etxean ezer balio ez dutelakoan eduki izan oi ditugu gaiñera.

Beiña gure errian. Nork ez du Erentxun'dar Jon ezagutzen? Junanito'rekin ez da ori gertatzen, gizon argi ta langille au, euskaldun danok ezagutzen eta estimatzen degu. Ao batez, Erentxun Juanito'ri omenaldi eder bat Arrua'n eskeintzeko erabakia artu dutelarik, oso bidezkoa iruditzen zaigu.

Irakasle trebe, musikalari —batez ere pianoari buruz— ta idazlari bezela zer esanik ez. Abizen aztertzaille sakona ta Zestua'ko edeslariri bikaiñena. «Apuntes Históricos de la Villa», «Zestua'ko Gurutz Donea» Nork ez du irakurri? 1808'garren urtean Prantzetarrak Euskalerrian sartu ziran urtea. Dufresne jeneral prantzetarrak emandako agindua, ta tinta gorriz idatzia gaiñera! Garia bear zutela, alajaiña! «Comissaire des Guerres etabar...

Gure Juanito lana latz egiteko jaio zan, auek ez dute amairik izaten, bilduta dituan lan geiago izango ditu agian. Beste berri geiago azaldu nai ba'ditu bizi osorako aiña lan ba-du.

Zestua'ko erriak ordain bekizu ta zabaldu beza zure izen aundia.

ARRUA'RROK ZUEK DEITU ZAI GELDITZEN GAITUK!

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Galdakano

TOPE-TOPEKA.—Ikusi litzaken topekarik andiena ikusi genduan, ia erri erdian dogun gurutzero nagusian. Gurdibil aindi bi ta iru berebillek alkar tope egin eben, edo obeto esanda, gurdibil orreitariko batek abiada larregian etorri zalako, edo geldi-argiak gorrian jarri ta geratu ezin al izan ebalako, edo laprast egin beste gurdibilla jo eban, onek beste berebillak eta azkenez bera bere iraulita geratu, berebil bat guztiz triskatuta itxi ondoren. Benetan, ikusgarria zan an agiri zan burdin mordoa; ezin legikean siñestu be, berebil areitatik iñor bizirik urten leikeanik. Baiña, zorionez, ez zan eriotzarik izan, zauritu bi edo iru, baiña ez guztiz txarto. Berebillak barriz, barriztatuko dira, edo barriak egin.

URBATZA?—Bai, orixe izaten da, edo iduritzen da, euria pizkat lodi samar danean. Urreta-bekoa, orain «Señorío de Vizcaya» izena jarri dautsen txaideko be aldean sortuten dana. Alderdi orretan bitxabal azpitik igaroten dan suiltxoa txikiegia dalako edo inguru artan dabiltzan etxegintzakoak eta lantegiak urbide ori loi eta ondakiñez bear baiño geiago bete dabeelako, euria sendotxu asten daneko izugarrizko urbatza egiten da. Ez oiñez, ez berebillez iñor ez da igaroteko eran izaten. Gaiñera, inguru artan dagozan salerosteen kalterako bere ba-da. Eta ori gitxi ba'litz, geienetan, or ura beti dagolako, bideko zulo bat betetan dabeneko, beste andiagoa egiten da.

Ziur gagoz, errian dogun Endoreak ez dabela, alderdi ortan jazoten danaren barririk, ardurea daukenak ez dabeelako jakitun ipiñi. Bestela, oraingoz, ezertariko zalantza barik, bear dan lez erabagita aurkituko zan. Ondo ezagutzen dot Endore jaunaren kemena, bai orixe!

LORE-BARATZA.—Antziñatxu esan genduan, Lore-baratz bat egiten asiak zirala erri onetan, eta oraindik amaitu barik ba'dago be, laster amaituko ei-dabe. Oso apaiña izango dan antza artuaz doya. Ainbat milloi laurleko ei-dira, baratz ortan «sartu» dituenak, eta sartu bearko diranak, amaitu orduko; ta zerbait izango da, orain be guztiz apain ikusten da-ta.

Gure ustez, ainbeste txindi alderdi ortan eralgitea tamala da; errian dan tokirik zaratatsuena da. Bitxabal gurutzero nagusian aldamenean aurkitzen dalako, erriaren apaingarri bat besterik ez da izango, umeen jolastoki eta zarren atseden baratza izan bearrean, ez da ba orretarako toki egokia. Ba-da errian, gure ustez eta oraindik beintzat, alderdi baketsuagorik lore-baratza egiteko, bitxabal zaratatsu ta Ibaizabal loituaren erdian baiño. Baiña ortxe egin dabe, ta bizi ba'gara, laster ikusiko dogu lore-baratz guztiz apaiña.

GOGO-JARDUNAK.—Jakiña, garizumea be ba-da-ta, ainbat gogo-jardun izan doguz erriko txadon nagusian, baita erriko beste elizetan be. Guretzat baiña, egokienak euskaldun lez, euskerazkoak izan dira, eta orretariko ederrak, mamintsuak, sutsuak izan doguz Aita Serapin Euba'ko lekaideari eskerrak. Tamalez, ez zan an bear zan aiñako notintzarik ikusi, sarritan lez, galdakaotar euskaldun asko oraindik be lozorroan dagoz-ta...

BASA-JAUN

Errenderi

SAMINDURIK.—*Gaude beneran errenderiar euskaldunak. Eta ez da gutxigorako izan ere. Illberri bait dugu gure euskaldunik jatorrenetako zen Korta eta Ayestaran'dar Andoni maitea. Ezin siñistu degu ala danik ere. Baiña zoritxarrez alaxe da. Epaillaren 4'garren egunez eriotzak gure ondotik betiko eraman zigun, gaxotasun gogor eta luze baten ondoren. G. b.*

Nork etzuen gure artean, «Añarbe» izenaz bere euskal lanak argitaltzen zituan Andoni ezagutzen? Ez da errex. Gaitasun aundia, berebizikua, zuan euskeraz idazteko. Batere orraztutzeko astirik gabe argitaldu oi zituan amaika aldiz. Bere erriko-xortak gogoz irakurri oi genitun, izketan bezelaxe idatzi ere egiten bait zun, erriak darabillkian euskere batere aldatu gabe egin ere. Amaikatxok bere berriak irakurriaz irakurtzen ikasi genduan eta irakurzaletu ere baita. Nik neonek ala ikasi nuala aitortu bear det beintzat.

Euskal lanetarako beti prest egon oi zen, ezeren aitzakirik gabe, zena zela, baiezkua ezpaiñetan zuala eta aierazi orduko bai erantzunaz. Aspaldiko urteetan Errenderi'ñ euskeraren alde egin dana beragandik sortua da edo-ta bera an nunbait zela.

Azkeneko aldi ontan ikusi ditugunakin minberatua egon oi zen, batez ere gaztediaren joerak, eta atxetik sortu diran burrukak, bere onetik ateratzen zuten. Gizagajoak ori dela-ta, naigabe aundiak izan zituan.

Bere emazte on, Merzedes Rekarte Oliden, seme-alaba Lourdes, Itziar, Gabriel eta Miren andereiño langilleak, ama Anjela Ayestaran, amagiarreba, billoba, lengusu, senide eta errenderiar euskalzale guztiak gure samiñ-agurrik egiazkoena jaso bezate.

Otoitz bat, irakurle, «Añarbe» zenaren alde.

ASTE EDER-EDERRA.—*Izan degu Errenderi'ñ. Andoni Korta zenaren illetak bukatzian bertan, Epaillaren 6'garrenez, eta aste osuan, euskerazko garizuma itzaldiak asi zitzaizkigun.*

Eleiza bete-beterik zela asi eta alaxe bukatu ere egin ditugu.

Egunero bi itzaldi izaten ziran, bata Zamalbide'ko Elizen eta Andre Marikuan bestia. Izlari, Aita Zubiaga, Jesusen Lagundikua, izan degu. Egun auei dagozkien gaiak erabilli dizkigu, argi ta garbi erabilli ere, bear zena esateko batere eragozpenikan gabe. Oso pozik geratu gera bere entzuleak. Berriro ere entzuteko gogotan. Alaxe azaldu zuen gure Erretore Jaun Agurgarriari.

«AGUR» GUREAN.—*Bai, Errenderi'rañ etorria degu eta laister zabalkunde sakon bat egiteko asmotan gera. Oso atsegin zaigu amabosteroko au eta gure etxe danetan sartu artio ez degu etsiko.*

E. I. B.

Zeanuri

DANOK GERO.—Nundik edo andik zeozer idatzi bear AGUR aldizkari onetan gure erria agertuko ba'da, edo oles egin dagigun, emen gara, esanaz. Baiña orretarako ez dot zuok uste dozuen aiñako etorria; baserriko langille ta idazle ona batera izaten ez da gauza erreza, ez da orrela?

Ainbat idazle trebe doguz errian, noiz itxartuko diran begira nago, bitartean idazten jarraituko dot. Ea ba, Eupa mutillak; gora neskatxak! Euskerearen alde zeozer egiteko ordua dogu-ta. Farra-farra erdera egiten ei-da erri onetan batez be emakume edo andrazkoen artean. Kontuz ba, gaztelerri biurtu ez daigun Gorbei'peko erri au.

SAN JOSE EGUNA.—Aurten bere, aspaldiko urteokaz ospatuten dogun lez, Los Rios'ko Mixio eguna dogu. Ainbat euskaldun mixiolari ba-da or zear joanik. Laguntza barik nola egin gogozko izan legikeen lanik? Indar-barritu gaitezan gogor danok al doguna egiñik. Ez dagiela uste izan euretzaz aiztuta bizi garanik.

GORBEITARRA

ERRIETAKO BERRIAK

Usansolo

GOGO JARDUNAK.—Epailleko 5'etik 11'garrenera, gogo jardunak izan doguz auzoko Eleizan, aita Serafin Pasiotarra mintzalari zala.

Gogai mamintsuak benetan an entzundakoak, baiña, nire ustez beintzat, bat egoan euren artean, bere gogo aundienagaz gure biotzeko sustraietaraiño Aita Serafin'ek sartu gura ebana, ta bai ta lortu be.

Baita lortu be diñot, ba orain arte bere semeeri erderaz geienetan egiten izan dauson guraso bateri entzundakoa da, bere etxean ez dala geiago erdera egingo; baita bere seme zarrenak anai gazte bateri esandakoa; «Euskeraz egin edo etxean, beintzat, ixilik egon».

Ze gogai da ba ori, onelako bultzakadak egin dauzana?

Ez da Kristau benetakoa, bere Erria maitatzen ez dauana, bere oiturak eta izkuntza, bere sendi barruan landu ta zaintzeko alegiñak egiten ez dauana.

Gaurkotu bai, ori be ainbat bider entzundakoak gara, bearrezkoa dalako une onetako semeak garan ezkero, baiña gure nortasuna galdu barik, zugatz gerrian adar barriak dagozan antzera.

Eskerrik asko Aita Serafin. Jarraitu bide ortatik, zulako mintzalariak bear ditu gure Erri gaixoak-eta.

Itxartu egizuz gure euskaldunak, artegatu egizuz, ia argi ta garbi gure bidea ikusten dogun gure Jaunaren guraria betetzeko, ta gure Erria, bear dauan maillara igoteko.
Eskerrik asko barriro bere.

ILLETAK.—Gogo-jardunetan diñardugula, Linaza'tar Nikolasa, Sagarminaga'tar Zeledon'en emaste zintzoa, gure auzunea itxi ta Aitarengana igon zan: Bere sendian ezkariz, Elizkizunak euskeraz izan ziran, aita Serafin buru gendula.

A, meza ederra izan genduana, Eleizan lekurik be ez egoala, baiña danok biotz biotzez gure oparia bere alde eskeintzen, ta gure azken agurra Nikolasa'ri emoten.

Bere sendi guztiari, baiña batez be, bere senar izan dan Zeledon'i gure atsekabe maitekorra.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Oñati

BA-ZIRAN, BAI.—*Aranburu eta Mugarza'tar Kaitana. Leaniz eta Barrutia'tar Esteban zanaren alarguna, 86 urterekin, Otsaillaren 9'an il zan. Goian bego! Senar onein bizitzako gora-bera batzuen asterketa txiki bat egitea, ez da gaizki izango, askoren jakingarrirako.*

Leaniz eta Barrutia'tar Esteban eta Aranburu'tar Kaitana, 1911'ko, orrillean ezkondu ziran. Senar-emazte oneik etzuten ondorengo sendirik izan, Goribar Goiti'ko etxe ta etxeari zegokion ondasun danen jabe zan Leaniz Barrutia jauna. Il zanean bere azkenengo edo testamentoan, bere emazte maite ari utzi zizkion bizi zan arteko. Goribar Goiti'ko ondasun danen gosamena. Berau etzan garaian errirako izateko.

Emakume bakarrarentzat nola bai zan etxe alde aundia berak bakarrik zaitzeko, urte batzuek igaro ondoren, 1928'an, Udaletxeakin, Arrazola'tar Dotoko alkate zala, Itunben edo kontrakto bat egin zuan, urtean lau milla ta bosteun laurleko emateko alargunari, Goribar Goiti'ko ondasun danaren egoamenaren alde, bera bizi zan artean, eta Udala jabetu zedilla Goribar Goiti'ko ondasun danarekin. Itunben orren bidez berrogei urtean jarraitu zuan lau milla ta bosteun laurleko artzen. Azkenengoko iru urteten toleztatu zioten. Lau milla ta bosteun ordez, bederatzi milla laurleko jaso zituan.

Matxinada garaian, lau urtean lotuta iduki zuten bere artzekoa, bereak zituan ondasunaren alde ematen zizkioten laurlekoak. Nolabait eta buru asiste askoren ondorean, legegizon bat bitarteko ipiñi ta bereganatu zituan bere artzekoak. Baita atzeratako danak ere.

Il dan emakume onek, euskaldunentzat, zerbait pozgarri izateko ere bere kondairan, euskerari buruz erakutsia zan. Gipuzkoa'ko Aldundegi edo Diputazioak, 1920'tik ogetaseira bitartean, iru Euskel jai eraldu zituan Gipuzkoa'n eta iruretan nor geiagoko leiaketa Euskeraz onduen irakurtze zutenen artean. Lenengoa Oñati'n, bigarrena Bergara'n, eta irugarrena 1926'an Donostia'n, emakume auxe izan zan, iruretan lenengoko saria irabazi zuana, Euskeltzaliontzat ez al da gauza pozgarria? Illa bada ere otoiz banakin izango bada ere, gogoratu gaitean berarekin.

Orain goazen, Leaniz eta Barrutia'tar Esteban, nor zan jakitera: Jaun au, jaiotzez arabarra, Aramaixo'ko semea izaki. Gazte-gaztetatik, abertzale zintzoa izan zana. Sabin zana, espetxean zegon garaian, bein baiño geiagotan, bera ikustera joan oi zana. Eta ez gazte zanean bakarrik, bere bizitza guzian alaxe iraun zuan, benetakoa. Berakin zerbait artu-eman izan genduanok, ondo ezagutu genduan bere gizontasuna nolakoa izan zan. 1921'an 61 urte zituala il zan. Ainbesteraiñoko kristau ta errizale leiala izan zan, an dago bere illobi gaiñeko gurutzean euskera garbian idatzita esaten duana: EUSKOTARRAK, GURUTZEA BETI GOIBURU.

Barrutia jauna, etzan itzetan luze ta egiñetan mots, ez. Itzetan mots eta egiñetan luze baiño. Bera bizi izan artean, bere pentzakerak, bere orduko gogamenak, bera ta bere emaztea il ondorean ere bizi zitezela nai zituan.

Jainkoak lagun, beste idatzi batean agertuko dira, bere azken nai edo testamentuaren zati batzuek, gai orri buruz.

ERRI ZALE

Arrasate

IRAKURLEEI.—Gaur egun oso ezagun zaigu gure aldizkari «AGUR» au eta arpidedunak be erruz datozkigu. Orain urtea baiño sei bidar geiago gara erri onetan, baiña ori ez-da naikoa, eta irakurle bakotxak gutxienez beste bat geiago egiten alegindu bear litzake. Ba-dira bai au egin dutenak eta eurori eskerrak igotze aundia egin du. Ea ba-da, lagun maiteok, egin dezagun beste aurrerakada bat, ea danon laguntzaz egiten dugun «AGUR» au aldizkari ederreneitakoa. Baiña au bakarrik ez da naikoa, eta danok elburu bat izan bear dugu, au da; IRAKURRI. Au da bearkinzun aundienetaiko bat, bestela, erosi eta irakurri ez, alper-lana izango litzake.

ERIOTZAK.—Jaunaren besoetan il da bere 89 utegaz, Ballona eta Sudupe'tar Dolores. Bere bizi guztian kristau eta euskaldun zintzoa izan zan eta euskaldun sendi eder bat osatu zuan bere alaba Marikutz, suin Orobengoa'tar Bingen, eta semeak, Erroman eta Gergori'k. Goian bego Nekane zanaren arima.

Baita ere il da Donosti'n, Eskurra'tar Paul. Erri onetako semea baiña aspaldian Donosti'n bizi zan. Bere bizi-bidea ikastola-maixua izan zan, baiña emengo gerra madarikatua zala-ta, alde egin-da egon bere lanbidetik. Gerra aurretik bai-ziran erri onetan zortzi edo amar irakasle euskaldunak eta Paul ori euren artean. Gaur arte jarrai izan ba'zuten maixu euskaldun oneik, beste biderik izango zuan gure Euskalerri maite onek, batez ere euskera gaxuak.

BATZARRA.—Igandean, il onen 5'an ospatu zan Hermandad Sanitaria de San Juan Bautista'koen Batzar-Orokorra. Tamalez jende gutxi batu zan bertan, ain gutxi, Alkarte onek baditu 2.800 bazkide eta eurotatik 40 bakarrik agertu ziran. Lotsagarria benetan. Alkarte onek merezi du ba ori baiño begirune geiago izatea. Diru gora-beretan 8.000.000 (zortzi milloi) pesetan sarrera izan zuan igazko 1971'ng urtean eta urten ziranak 7.000.000 —laurleko. Beraz 1.000.000—, irabazia izan zuan gutxi gora-bera. Batzar ortan emon ziran zertzelada guztiak emen agertzen ezin izan liteke, ba-da «AGUR» orrialde bat osorik bearko litzake. Bakarrik esan leiteke bere eginkizun askoren artean onexek dirala: Osateebakuntza, odol eta azterketak, gexo-aldietan laguntza, jaio-barrientzat soiñekotxoak, 190 zarsarituei laguntza, naiz gizon edo emakumeei urtean sei milla peseta emotea eta abar. Orrez gaiñera bazkidea iltzen danean 8.000 —edo 12.000—, peseta ere emoten dautsaz bere sendikoeei. Baita ba-du gexoak orra-ona erabiltzeko berebil eder bat. Oso garrantzi aundikoa da bazkide geienak agertzea, an aurkeztuten diran zertzeladak jakingarriak izaren dira-ta. Ez bai-du balio gero atzetik marmar jardutea. Ea ba-da urrengo batzarrean arpegi emoten dugun danok edo al-duten guztiak bertaratuta.

Pozik emongo nituzke Batzordea osatzen dutenen izenak, baiña ez ditut eskuartean eta ezin emon, baiña bai esan bear dut Lendakari izaten laugarren urtean sartu dala gure lagun dan Mendizabal'dar Joseba Iñaki eta ain zuzen daruala bere eginbearra, pozik ikusten dugula.

UDALAITZ

Arratia

ODOL.—Iturri izango dan odol-emoille alkartea eratuten diardue arratiarrak. Deia egiñik dago, non eta nori izena emon, eta ziurtzat joten dogu kukurrukua, erantzun baikorraren oiartzuna entzuna ta erantzuna izango dala gure mendi-barren eta zelaietan.

Gaur egun, guztiok dakigu «A-B-O-H-r» ta abar izendun odol muetak dirala gizonetan, baita «emakumeetan» bere. Ez aiztu baiña, gogoan izatekoa da-ta, «ka ta ka» dunak bere ba-garala. Eta ondo izango litzake, gari ta olo garbiketan, gure zaarrak erabilten eben galbaia erabilliz «h» danak eta «k» bikoitzdunak garaiz banandutea.

Aurrera bada! odol on ugaria ta gaixorik diranen kupi ta errukia dozuenok. Iñorenakin geurea baiño, geureakin iñorena nastatea, beti bere, obea izango da-ta.

* * *

Orain bere, gazte jator, zintzoenetan zintzoenak, bi galdu doguz, betirako. Iñaki ta Josu izan dira eriotzaren erpe makurrak lapurtu dauskuezanak. G. B.

Ildako gazteen mezetan Karmelo'n bere izan nintzan, eta eleiz-aurreko zelaitxoan, Iurre'ko Bixente ta Lontxo Urkijo anaiakaz aurkitu. Bixente, nire adizkide on-ona, itzlapiko (eltzea) ugaria beti lez, eta ekiñaren ekiñean euskera-zotaskan sartu giñan.

—Euskerazkorik ezer irakurten dok?

—Zeozer bai.

—Zein aldizkari?

—Ba... Prailleena-edo... olako zerbait.

—H'duna dok, ala h'rik gabea?

—Ba... mutil..., orixe be... etxakiat, bakik?

—Ez. Ik eztakik, baiña nik bai. Ik tutik be ez dok irakurten, abar eta abar...

Urtearen buruan zenbat diru ta ordu emoten dautzaguz erdereari? Euskereari diru gitxi ta begiak itxi.

LANDAJUELA'TAR A.

Zumaya

BERRIZ ERE BAI?—*Donosti'ko «Zeruko Argia» asteerokoan, berriz ere «Olarru» izenpean bere egiazko izena ixkutaurik, bear eztako zerbait idatzi du. 465'garren zenbakian dezute idazlan ori, Otsaillaren 6'garren egunari daokionean.*

«M. Anjeles Sorazu» izenburutzat daramalarik, auxe dio: «Guk Zumaian, bertako alaba izanagatik, aipatu ere ez dugu egin». Ori dio igaz «aren eriotzaren 50 urtebetetzea zala-ta».

Ez, Olarru, ez! Ori ez da orrela. Zuk zerorrek zere burua ondatzen dezu. Zarata egin zenion Azaroko bederatziurrenari eta etzenekiela zer zan obe: elizkizun oietara joatia ala ez joatia, esan eta idatzi. Ez al da ala?

Asko arritu giñan katoliko bateri ori entzunda. Etzerala izango uste det baiña. Ez dezu beiñepein ala ematen! Dana dala, zu len aipatutako bederatziurren ortara joan izan ba'ziñan, etzenduan «aipatu ere ez dugu egin» esango.

Bederatziurren ortako itzaldiak Aita Zubiaga jesuitak egin zizkigun. Oso ondo egin ere gaiñera. Eta lenengo itzalditik aipatu eta goratu zuan gure erriko alaba A. Sorazu, baita bere eriotzaren Urrezko Eztayak ziralazkua ere. Etziñan an izango ta, jakiña, eziñ jakin!

Bederatziurren osuan *baita-re, egunik laga, gabe, bere bizitz eta idatziaz zeozer esan zuan. Eta ori bai, arratseko eta bai goizeko itzaldietan. Erderazkuetan ez dakit, enintzan izan beiñera-ta.*

Beraz, zuk diozuna EZ DA EGIA.

Bukaerakuan, berriz, ondo goguan det, auxe gora-bera esan zigun: ZUMAYA'KO ETXE DANETAN AITA VILLASANTEK IDATZITAKO LIBURU «NERE IZENA PLORENTXI ZAN» IZENA DARAMANAK LEKU BEREZI BAT BEAR LUKELA!

Eta ori ez da gero «Guk Zumaian aipatu ere ez dugu egin»!

Aipatu da eta nai duanak bere berri jakin al izan du. Joan izan baziña jakingo zenun. Eta etzendun esango.

ARRANTZALE



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

Euskal Erriko Gizon ospetsuak

ETXANIZ'TAR NEMESIO

Milla zortzireun larogei ta emeretzigarren urtean, lotazillak emeretzi egun zituelarik; apaiz, olerkari, idazle ta gizon au Azkoiti'ko errian, jaio zan. Orain dela emezortzi urte, etorri zen Nemesio, Donosti'ra bizitzera.

R.—Nun egin zenitu Nemesio, apaizgintzarako ikasketak.

N.—Nere ikasketaren asierak Lekaroz'en izan ziren. Bertan ordea, urte bat bakarrik egin nun. Lekaroz'en egun aietan bost apaizgai bakarrik giñan, beraz, bertatik Komillas'era jun bearra izan gendun, gure ikasketak jarraitu, eta amaitzera.

R.—Gazterik joan al ziñan delako seminariora.

N.—Amaika urte izango nitun, eta amabi urtekin, asi nintzan zerbait arduratzen euskal giroari buruz.

R.—Nola izan zen beraz, giro ori sentitzea, euskalerriko zaletasun ori sumatzea.

N.—Amabi urtekin, Euzkadi izeneko izparringia irakurtzen, asi nintzen, bertan azaltzen ziran gai edo lanak, esnatu arazi zidaten apur bat. Gero Orixe ospetsua etortzen zen gure seminariora, irakasle bezela; etortzen zen bakoitzean, ibillaldi batzuk emanaz alkarrekin, adierazten eta erakusten zidan, gure erriko nortasunaren berri.

N.—Ni gogoratzen naizelarik bat edo beste izaten zan. Neretzako gaiñera batek ba-du, oroimen onuragarria. Urretxua'n, Iparragirre'ren omenaldia bide zelarik. Beste zenbait eginkizunen artean, olerki txapelketa bat eratu zuten, nik «Gizon Erri» izeneko olerkiarekin bigarren saria irabazi nuen.

R.—Musika zale pizkorra zeran aldetik, zertxo bat ere adierazi bear didazu gai onetaz.

N.—Begira, neri min ematen zidan benetan, garai artan, gure errian modan zegozten abesti guztiak, erderaz bakarrik abesten zirela ikusirik, beraz, orrela asi nintzan lanean, neronek sortuaz abestiak, letrak ta berdin musika, jakiña danez, kanta zarrak astu gabetanik, bertsoak ta abar. Orrela, txa-txa-txa, runbak, eta beste «modako» abestiak euskeraz kantatzeko aukera izan zedin.

R.—Entzun izan oi dut «Ez dok Amairu» taldea, zuk sortu zendula, zer derizkiozu onetzaz.

N.—Egia esateko nik ez nuen sortu, baiñan ikusirik, euskalerrian (nik bezela Salbatore Mitxelena'k) «Boga Boga» eta orrelako kantak bakarrik abesten zirela, len aipatutako lan orretan asi nintzen. Onen ondorena izan da noski «Ez dok Amairu» taldea osatzea.



Asteazu'n: Ayalde, Etxaniz eta Orixe

R.—Idazten berriz, noiz eta nola izan ziren zure asierak.

N.—Bertso batzuk asmatu ondoren, lengoko ARGIA izeneko izparringira bidaltzen nintun. Ez nuen nere izenarekin izenpetzen ordea, baizik orren ordez, Erratzu izengotia ipintzen nuen. Nere amaren baserriak, aren jaiotetxeak, orrelako izena zuen eta beraren omenez bezela-edo, oso atsegin zitzaidan izen orrekin izenpetzea.

R.—Zenbat izparringi geiotara bidali izan oi dituzu zure lanak.

N.—El Dia, Euzkadi, orain berriz, Arantzazu, Zeruko Argia, Goiz Argi, Agur ta abar. Baiñan, emen ere nere izena izengotiakin nasturik; Azti'tar Xabier, Amillaitz...

R.—Liburuak ere argitaratu dituzu noski, gogoratzen al zera batzuetzaz.

N.—Nere lenengo liburua oso une edo aldi txarrean argitaratu zen; txarra, euskal giroatzaz esan nai dut alegia; Aren izena «Nola idatzi euskeraz». Gero argitaratu ziren: «Boga Boga», «Kanta Kantari», liburu oneri, Ximon Berasaluze, Deba'ko Artistak, egin zion portada edo azala; «Ukarregi», Ipui batzuk, eleiz liburu tikiak, lau antzerki, azken argitaratu nuena, bilduma bat izan zen, bere izena: «Lur berri billa», ta oneri azala edo portada Ayalde'k egin zion. 1967'ko urtean argitaratu zen liburu au.

R.—Len esan didazunez, oso giro txarra zegon une aietan, beraz, euskal giroa sortzeko zailtasun aundia. Izaten al zan garai artan Euskal jai edo orrelakorik.

R.—Musika berri sumatze orretaz kanpo, eman izan al dituzu ikasketa edo itzaldirik.

N.—Donostia'ko Circulo Cultural'en (Ateneo) saiatzen nintzan euskal giroa erakusten. Orrela urtero itzaldi batzuk ematen nintun Euskal kulturatzaz; bein kanta berritze au bide zelarik mintzatu nintzan beragaz. Jendearentzat, itzaldi ura oso «reboluzionarioa» izan zen.

R.—Azkenik Nemesio; zenbat abesti asmatu edo idatzi dituzu.

N.—Ori bai dala ezin esaneko gauza; asko direla ba-dakit, beraz neronek ere ez dakit ziur zenbat izango diren.

Nik ordea alkarrizketan ari giñalarik, bere liburu batetik jaso nitut zenbait titulu. Ona emen ale batzuk: Kattalin, Ez atzokoa, Illunabarra, Euskalerri maitea, Joxepa, Laztan bat, Iru alaba, Ain urruti ta ain urbil, Ogi txuria, Bat eta bi, Martintxo, Umezurtza, Txori txiki... Nemesio'ri baita ere, galdetu diot abesti abekin zer egiten dun.

N.—Kolejio edo ikastoletara bidaltzen dira, eta batzuk arduratzen dira, baiñan zoritxarrez, ez dira oraindik oso ezagunak.

Alkarrizketa onetan Nemesio'k bere abesti batzuk kantatzen aditu da, eta bere olerki batzuk irakurtzen, bixitasun guztiz gaiñera, egindako lanaren oroimenez edo oartuaz. Neri benetan oso atsegin izan zaizkit, naiz abesti naiz olerkiak.

Nemesio apaiza,
gizona,
ameslaria,
zu zera, zu.

Etxeko ateraiño lagundu dit, agurtzekoan bere azkeneko itzak auexek izan ziren: «Emen, Pakezko reboluzioa egin bear diagu».

Egin dezagun bada, or ikusiko gera Nemesio.

RAMON ZAPIRAIN

Filolojiazko jardunak IV

Eztabaida Biziak

Alakoxeak ziran urte aietan Catalunya'ko egunero ta aldiz beingo paperetan irakur zitezkeanak. Pompeu'k lan ortan ziardun asmatzekoa danez: ortografia zala, aditzen bukaerak, izenen aldaketak, apostrofe ta gaiñerako ikurrak, abar eta abar gairik aski eskeintzen zioten. «Centre Excursionista» aretoan itzaldi batzuek ere eman zituan. Pompeu'ren ustez katalaneera jatorrena «sortaldekoa» zan, ots! Bartzelona inguruan mintzatzen zana.

Jaume Collel kanonigoak, Apeles Mestres, Omar i Barrera idazleek aurka egiten zioten. Azkeneko onek bere iritzia indartzeko esaten zion ez Gimera, ez Verdaguer, ta ez Soler ez zirala Pompeu'kin bat etorriko.

Alaz eta guziaz, onek Literatuzko katalana, *L'Avenc* aldizkarian asieratik erabiltzen asi zana aldentzen zuan. Omar i Barrera, berriz, erdibidearen aldekoa zan, berrikeria larregi gabe, izkuntza arruntagoa aukeratuaz. Pompeu'ren kezkatik bat katalanera gaztelarezko ortografiatik bereiztea zan eta orrengatik «*Cavall*» itza onela idazten zuan eta ez «*Caball*».

«La Vanguardia»n «reforma lingüística» zeritzan saillean, besteak beste, greziatar *Y*'ren ordez, latiñezko *I* nagusitzea lortu zuan.

Ez au bakarrik: Pompeu Fabra beti izan zan *H* (hache) kentzeko iritzikoa, naiz gerora, pakearengatik, banakaren batzuek onartu ba-zituan ere. Baiñan bizi guzian damuturik *H* letra erabat kendu ez zutelako. Eta au baita ere «Institu d'Estudis Catalans» eko buruzagi egin zutelarik.

«*Bandejament de la H*», hache baztartzea, berak zionez. Ontan italiano erako legeari zerraikion... Erderaz esanda itzez itz... «No sólo por gusto o afinidad arbitraria; sino por razones de orden técnico, en virtud de las cuales *todos los modernos lingüistas han consultado al italiano cuando han querido inquirir la forma más adecuada (escaient) en determinados problemas de la lengua*». Ori zan Pompeu'n ikusbegia, gure jakintsu aundi R. M. Azkue'k H. letrari buruz izan zuanaren kidea: una pobre H, parásita siempre, molesta generalmente...

Garrantzi aundia zuan Fabra'rentzat Katalan izkuntzari, bere senari loturik, gaztelarengandik itxura bereztea. Azkenik leiatu zan sortaldeko katalanera literaturazko-izkuntza biurtu zedin. Katalan modernoa zeritzana.

«*La España Regional*» eta orobat «*La Renaixenca*» aldizkariak latz erantzun zioten. Alegia, beti «berrikeriaren billa zebillela, bere burua gaillendu nai zuala, »«*OMO, ONOR, AVER*» et beste itz askotan Hache kenduaz. Lenago esan dugunez Pompeu'k latiñezko etimolojiatik zetozten itzetan amore eman zuan...

«*L'Esquella de la Torraxa*» asteroko zirikalaria orrenbeste berrikeri ta aldaketaz asarretzen zan, katalanerantzat kaltegarri izango ote ziralakoan; indartu bearrean argalduko zutelako.

Pompeu lanean ari zan beti ta 1892 urtean garaipena ezagutu ere bai, eman zuan itzaldi batean. Oi zuanez, gaztei izkuntzaren bidetik lotu egiñik zebiltzan gramatikariak jorratu zituan eta pozik gelditu zan aintzat artu zutela ikusirik. Urte artan il zan etsai zuan Bofarull jauna baiñan naigabez jakin zuan berri samiña. Fabra gizon zuzen eta zentzuduna bait genuen eta ez alper-burrukaren zale. Ostantzean gogakarri zitzaizkion Mosen Collel eta antzekoen itsumena; auena ez ezik adiskide kutun zituan zenbaitzuena... Jaume Masso ta Cassas Carbo batena, esate baterako.

Eztabaidez asperturik egon arren, «*L'Avenc*» berriro amabostean bein argitaratzen asi zalarik ekin zion Ortografia buruzko arloari eta bere asmoak aurrera eman zituan 1906 urtean «Congreso Internacional de la Lengua Catalana» Bartzelona'n bildu zanean.

Bitartean jende berria azaldu zan katakaneraren aldeko burrukan: Jaume Brossa sutsu ta aurrerakoia; Joan Maragall, gero olerkari ta idazle bikaiña izango zana; Rusiñol ertilari goitarra eta abar...

Guziok onartu zuten Pompeu Fabra'ren izkuntza tankera: katalanera berritua. Ez aitatutakoek eta ez beste «*L'Avenc*» tarrok ez zuten begi onez ikusten «Brusi» egunkaria ez Mañé i Flaquer oso Euskal-Erriaren maitale izan zana. Aski zaigu bere liburu «El Oasis» gogoratzea.

Gazte aiek ez zituzten gogoko «Jocs Florals» deituak eta katolikotasuna eragozpen zitzaiela adieraztera ausartu ziran. Arropuzkeria zan, noski. Belaunaldi berriak beti uste izan du bere aurrekoak ez duala ezer onik egin. Kontuan artzeke, oraingoa joan danaren ondorengo dala naiz arengandik aldendu nai izan. Ori gertatu zan atzo, eta jazoko da gaur eta bigar. Pizkanaka-pizkanaka ordea aurrera bidean joatea da, bearrezkoena.

Rusiñol'ek 1893'garren urtean Katalaneraren aldeko itzaldi bat baiñan gaztelaniaz mintzatu zalarik, lagunak asarretu zitzaizkion.

Toki artan bertan, Ateneoan Guimera izan zan, lendakari zala, itzaldia lenengo aldiz katalaneraz egin zuana. 1895'garren urtean jazo zan gertakaria, Pompeu'k esan zuanez «*La Renaisenca*» zan ezkeroztik garrantzitsuena.

ANTONIO M.ª LABAYEN

Iru Eratako Beartsuak

Erritar guztiak, bai siñesdunak, baita siñesgabeak ere euren txirotasunean batez ere eskean abadearengana urreratzen dira. Abadeak txarrak dirala esan arren, abadearen biotza bigun ta ona dala guztiak dakie euren barruan. Izan ere maitasuna iragarten daben abadea Kristo'k batez ere beartsuentzat egin daben gizona dala ondo dakie guztiak.

Bai abadeak, baita enparauak ere, eskekoak sarritan ederra sartzen dauskuela jakin bearrean gagoz. Nik urte luzeetan irutariko beartsuak dirala ondo igarri dautsot: txiro zitalak, txiro gatzbakoak eta txiro zoritxarrekoak. Uri aundietan batez ere txiro zitalak asko baiño geiago dira. Alperrak eurak besteen burutik biziteko beti gertu dagozanak. Ederto dakie uri artan zenbat gaixo-toki, umezurtz-etxe, osatoki, zenbat beartsuen laguntzaille diran alkarte, zenbat biotz oneko abade, lekaide, lekaime ta kristau bizi diran bertan.

Ta batari eskatu, beste aldean negar egin, eta guzur eta abarragaz ekin ta ekin eurak eta euren semealabak ondo baiño obeto aurrera daroez. Onentzako zigorra ta estutasuna dira onenak. Eurak, beartsuentzako dirurik geienak, arrapatzen dituelako.

Bigarrenak, Jainkoak buru gutxi emon dautsenak dira. Zaindu egin bear ditugu. Eurai zaindu baga diru ugaria emotea ere alper-alperrekoa da. Euren gatzbakotasunagaz lenbaitlen bear ez dan bezala guztia uxatuko dabelako. Orregaitik euren ur ta ondoan ibilli bear gara emoten yakena ondo erabilli dagien.

Irugarrenak, zoritxarreko txiroak benetan errukibearrak dira. Ba, zurrak izan arren be, eta zuzenak, errugabe gauza danak txarto urteten dautselako. Oneri geien lagundu bear yake onak dira-ta.

Gure gizartean zuzentasuna lortu daiten alegindu bear gara, baiña alegin guztiak egunda ere, Kristo'k diñoan bezela, beartsuren batzuk beti izango ditugu gure artean. Gure errian biotz on ta bigun asko dira. Orregaitik limosna ugariak ere egiten dira. Baiña batez ere txiro zitalen erraz geienak oso txarto banantzen dira. Onak izan bear dogu, baiña zurrak ere, maltzurkeriari aurpegi emoteko. Euskalerrian geure beartsu asko ditugu. Baiña gure limosna geienak atzerritarrak eroaten dauskuez. Euskaldunak atzerritarrak baiño askoz lotsakorragoak ta orregaitik eurai geiago lagundu bear dautsegu. Egia da txiro guztiak Kristo'ren irudi dirala, baiña eurai laguntzean etxekoak lenengo kontuan euki bear ditugu eta gero enparauak. Lotsagarria da izan ere gure gaixotegi, zarren etxe, osategi, umezurtz-etxe, lantokietan ta abar erbestetarrentzako tokia aurkitzea eta etxekoak ain barik. Neugandik asita laguntzarik geien txiro zitalentzat, baita erbestetarrentzat ere dirudi geiena. Ta geureak ixillak eta lotsakorrak diralako ala batera itxiten ditugu.

Zur ibilli gaitezen, ba, benetako beartsua nor dan ezagutu dagigun. Baita beartsuai jaten emotekoan, jantzitekoan, eurai ikaskuntza emotekoan ta lana eurentzako aurkitzekoan geureakaz lenen gogoratu gaitezen. Biotz onekoak izan gaitezen guztiok, baiña buruagaz eta zentzunagaz.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

AGUR

III URTEA
34 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - JORRAILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA



Elgeta'n, bide-erdian, erdi-bideko batasuna

ZAR ETA GAZTE

Zar eta gazteen artean ba dira ezbarditasunak. Eta izan bear. Gai guztiai buruz, urteak joanez, pentzakerak eta eretxiak aldatu egiten dira. Gizaldien arteko ezbardintasun au, erdeldunak «conflicto de generaciones» esaten dautsoena, aldi eta alde guztietakoa da. Gaur, bear ba'da, nabarmenago agertzen da.

Izkuntzea erabillikeran be ezbardintasun au agertzen da. Gazteak eta zarrak ez dabe berdin berba egiten, ez dira bardin mintzatzen. Orregaitik, izkuntzalariak, batez be izkera-zaleak, euren aztertzeak egikeran, beti, idazlearen edo berbalariaren urteak zeatz konturatzen dabez.

Ori orrelan izan arren be, alkar-artze bat bearrezkoa dala ezin ukatu. Familietan gurasoak eta seme-alabak alkar artu bear daben lez, eta gizartean gizaldiak alkar osotu bear daben lez, bardin izkuntza ta jakintza-bideetan be. Ez dot esan gura gazteak zarren eretxira beti makurtu bear dabela, ez eta zarrak beti azpiratuta egon bear dabela. Urteak euren nortasuna dakarskue, baiña, ori ta guzti be, bakotxa bere lekuan egonik, alkar aitze bat bear-bearrezkoa da.

* * *

Eta ori argi agertu zan Elgeta'n AGUR'rarren batzarrean, epaillaren 25'ean.

An ziran zarrak: Gure izkuntzearen alde lan asko egin dabenak, jakituriz beteak, onulari zurrak izateko gai ziranak, euskerearen maitasun eldua biotsetan ebenak, gazte-indarra gogoz billatzen dabenak...

An ziran, baita, gazteak: lan egiteko gurari bizia ebenak, egunerik egunera euskal-jakintzea eurekanatu gura dabenak, onu zuzenak entzun eta, aztertze sakon bat egin ondoren, aukeratzea egingo dabenak, biotz beroz firia maite dabenak, indarra ta odol beroa Erriari eskintzen dautsoenak.

Ba ziran, baita, zar eta gazteen artean zubi diran gizon eta andra elduak, gaur lan ugaria egiten diarduenak.

* * *

Eun eta ogei ta amar Erri-zale, «zar eta gazte danak naste» an ikusirik, geure itxaropena sendotu jakun. Lanerako asko garala ikustea pozgarria izan bear.

Eta aldi egoki baten izan da alkartze au. AGUR asteroko egiterakoan geure indarrak neurtzea bearrezkoa zan. Zurtasunak berak eskatzen dau au: lan bat artu baiño len norberaren indarrak neurtzea. Eta asteroko aldizkari bat lan sendoa da.

Eta geure burua indartsu ikusteak benetan poztu ginduzan: Zenbat idazlari, zenbat laguntzaille zintzo! Batzuk Bizkai'koak, asko Gipuzkoa'koak baita Naparroa'koak eta Iparraldekoak be, lan egiteko gogo biziz, geure izkuntzarako Erri-bidearen indarra ta baietz beroa onartzen!



Aurrera jo daigun ba. Izaki bizi guztiak txiki jaio arren urteak joanez azi egiten dira. Gure AGUR au be, txiki jaio zan, beste izaki bizien antzera, baiña aziez doa, geroago ta aundiagoa ta ederragoa egiten jaku. Laguntzailleak lagun, gerorako itxaropen ona dogu.

Beti alkar artuta, «zar eta gazte danak naste», Erriaren alde, izkuntzearen alde, guztiok eta beti aurrera jo dagigun.

AGUR

AGUR'EKO GAZTEDIA

«Ori al dek Xabier gazteena? Ain txukun eta sakon goi-gaiak erabiltzen ditun gaztea?» —Bai, adizkide, orixe dek amazazpi urte dun Xabier, eta andiko kirru ura gure beste egei urtedun Xabier alkar— izketagillea, ta orren aurrekoa Ander, ta albokoa Lourdes, ta beste gaztetxo a, Rike, ta emendiko mai ertzean jezarrita Erramun zeok, ta ori, ta beste ura ere bai, denok dituk idazleak, beste bi edo iru ezin izan dituk etorri izan... «Ori gaztedi ederra zuen aldizkarian!»

Alkar-izketa au Elgeta'koa dozu irakurle, ta nerekin iñarduana aspaldiko gipuzkoar adizkide zaar bat. Arrituta egoan gure arteko gazteen izenak eta urteen edo adiñaren barri jakitean.

«Arrituta natxeok, Josu!» —Zergaitik arritzen aiz?, nik, **mitoaren azpijana dek ori,** jarraitu nion, **mito sortzailleen artean geiegi bizi aiz eta konplejua sartu ditek, konplejua...**

Bai, irakurle, gizon eta batez be adiñeko konplejodunak nun nai aurkitu daikezuz. Azken urte oneitan, konplejurik andiena eleiz-gizonen artean sartu dutela deritzat; gaurkotasuna iruntsi eziñik, barrizalekeriaren lurrunetan zorabiaturik dabiltza. «Gaurko» ta «zuzen», beti-betiko itzak, ez dira alkarren aurkako, zorionez beteriko bide lagunak baiño.

Gure aldizkarian itxaropentsu dagozanen artean ba-dagoz orrelako batzuk, mitoakin zirkin eragiñak. Mitoak gure aurka? Zenbat gara: euskera zartudunak, integristak, kristau atzeratuak eta abar...

Eta guri zer? Bata besteagaz jo ezkero, gure aldizkari onetan besteetan edo gazte geiago dagoala esango neuke, naizta batzuk siñestu ez. Nun nai ikusten ditut, gaztediaren izenean oiuka diarduen idazleak, baiña nere antzera, berrogeigarren urtearen gaillur astuna lepo gaiñean daroe. Eta AGUR'en gazteak ditugu, gazteak. Euskeraz idazten dabenak, eta ez erderazko zirriborroak zuzendariaren itzulpenetan ixten dakienak. Fededun diran ala ez, ez dautsegu iñoiz itandu; eurak jakingo dabe zergaitik dagozan gure artean; eurak ikusi izan dabe gure iritzien muga nasai ta zabala zelakoa dan. Beraz, «daister aspertuko giñala» zabaltzen ebenak, jezarri beitez.

Guk, euskera zarra? Ba'liteke, zarra da gure izkuntzea-ta, baiña gure aurretik izan diran izkuntzalari jator eta jakitunak landua ta gaurkotua. Ala, Azkue batek ez ete-eban izan Axular edo Lizarraga'ren barririk? Ez ete-da gure Mokoroa gaurko «dinguista» askoren lenengo oinkadak zuzendu dituana? Neure belarriekin entzuna da: Euskal-joskera jatordunak ez du azentorik bear, baiña erdal-gogodunak ezin olakorik ikasi! Alperrik!

Integristak, gu! Ona emen beste astakeri bat, nork nori ipur-baltz! Olako zerbait esan dautso gure aldizkariari buruz, adizkide bateri euskaltzain batek. Integrista izatea zer dan etxean ikasiko eban zalantza barik, baiña «aurreratua» agertzeko, mingaiñez «progresista» dan orrek, ez du ekintza aundirik bereganatu; ez dogu lanean edo espetxeetan aurkitu; intelektuala dirudi, gerorako zain!

Baiña mito orreik, ez dauskue zirkiñik eragiten. Ba-liteke euskera arloan aldaketak egiteko «bibolojiari» begira dabiltzan izkuntzalariak «akonplejatzea», baiña ez gulako ezjakin burugogordunak. Izkuntza arloan jakitunenak, Euskalerrian gaur, gure aldeko ibarrean dagoz, naizta beste orreingandik naiko igurtzi ta labankeri jaso.

Ez dago, ez, gure artean konplejodun gazterik. Iritzi ezbardiñekoak, ba'liteke, gaurko gizarte aldaketari lotuak, bear bada, baiña apalak eta azterlariak. Gaztedia, bizitzaren aldi labur bat besterik ez da, eta gizaldietan zear, beti ikusi izan doguz gazteak, azken epaiaren billa, adiñeko edo zarragana joten. Ortik, erriko jakitun, zaarrak, batzarretako agureak, senadoreak eta abar, argi emoille beti.

Gazteak bear ditugu, baiña aurrekoak urratu dituen euskal bideeri uko egin barik, ta gaiñera, euskeraren onerako jo ta kee diarduenak. Orreik dira gureak.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

IRAKURLEEN TXOKOA

AZPEITI, 1972'ko Epallak 30

AGUR'eko Zuzendari Jauna:

Beste aldizkaritan bezela, Agur'ek ere irakurleen txoko bat agertu bear luke. Ongi baderizkiozute, emen dijoazkizute nere eskutitz au.

Asteko, bejondeizuela! Eta nere zorionik beroenak zuen euskeragatik; ez da iñun ederragorik! Gaiak ere oso atsegin zaizkit.

Orain, gauz abek jakin nai nituzke:

Lenengoa: Zein dira Euskaltzaindian parte artzen dutenak?

Bigarren: Nola izendatzen dituzte?

Irugarren: Egia ote da Agur'en H'ak sartzeko agindua artu dezutela? Noren aginduz?

Besterik gabe, Aurrera! Zuek, gu bezelako erritar xearentzat idatzi.

A'TAR I.

A'tar I Jauna:

Zuk egiten dauskuzun eskaria ez da lenengoa izan. Beraz, txoko ori zabaltzea erabagi dogu. Millesker zure arnas-itz orreikaitik, eta orain ona emen gure erantzuna:

1.—Euskaltzaindikoak nortzuk diran jakin daikezun, eta beste irarkuleak be jakin dagien, alboan jartzen dogu «Euskera» aldizkaritik artutako zerrenda ori.

2.—Zelan izentatzen diran, ez dakigu, baiña emongo dogu zertzeladaren bat urrengoan.

3.—Guk ez dogu ezertariko agindurik artu, ta «h» orri buruz gitxiago... olakoa alperrikoa izango litzake-ta. Onek ez du esan nai, bear bada, norbaitzuk «jauntxokerietan» ibilli ez dabiltzanik... Baiña ez estutu; bizkarazur gogorra dogu-ta.

Bejoindezula! zuri ere.

IDAZKARITZAK

SASKI NASKI

Nere aurrean «Euskera mantxatuaren haritik» idazlana, aldizkari baten agertua. Egia esan, izen onek arritu egin nau, eta bere esanaia ulertuko ote nun, idazlan au irakurtzen asi naiz. Zenbat eta geiago irakurri orduan eta gutxiago ulertu nuala aitortu bear. Ba-dakit oso jakintsua ez naizela, baiña nere ezjakiña ez nun uste ainbesteraiñokoa zanik! Ez orixe!

Zati batean onela dio: «Ez garela gizonaren eta herriaren ERREALITATE KONKRETUTIK abiatzen, geure buruan ongi xamar KLASIFIKATUAK ditugun zenbait ESKEMATATIK baizik». Bejondeizula! Ori da ori idazkera, eta gauzak argi ta garbi **adieraztea! Nik beintzat, esan bezela, ez det ezer ulertu eta ez dakit, beraz, «euskera irakaskintzan» zeintzuk diran gure akatsak. Eta au tamalgarria da; orrelako «irakaslearen» irakaspenak ezin ulertu!**

Ez da naikoa berak esan bezela «Euskera mantxatua erabiltzea; bertako gaietan itz asko **(eta asko nolakoak) azkenean ezer ez esateko.**

* * *

Beste gaia asterako, berri pozgarri baten billa ibilli naiz baiña aplerrik! Nere ustez gertaera asko aitatu bearra dago, ez gauza atsegiña dalako, egin bearra degulako baizik.

Orain bi edo iru illabete, Donosti'ko ikastola batean gertatua, adibidez.

Ikastola au (izena ixildu naiago det) orain lau edo bost urte iriki zuten. Baiña «norbaitzun» gogoko ez izaki nunbait ikastolaren joera, edo obeto esateko, irakasleen irakaskintza eta aurren eziera. Beste «erako» andereiño bat sartu nai izan zuten; bertako irakasleak etzuten onartu. Len aitatutako «beste oiek» ez etsi ordea, eta andereiño bat eta mutil gazte bat sartu zituzten, ez bata ta ez bestea irakasle, **laguntzalle bezela noski. Ordutik aurrera ez zuten ikastola orretako irakasleak pakerik izan. Azpilana... gezurra... irakasleen eta batez ere zuzendarieren aurren ezikera eta irakaskintza gaitzetsi... aurren gurasoen buruak gezurrez eta naspillez bete...**

Eta orrela azpijanez, (orrelakoen betiko jokabidea) irakasleak bota arte. Baiña iñork ez du aitortuko irakasleak bota egin dituztenik! Ezpaidute ezer aurrez aurre egin, esan bezela azpilanez baizik; eta orrela, bein eta berriz, eraman eziñeko gauzak egin eta Noski, iñoren laguntzarik gabe, azkenean irakasleak berak alde egin bear!

Au guzia ez da len aitatutako bi gazte oien lana; berena bakarrik ez, esan nai nuke. Oiek baiño indar eta buru geiago duten beste «batzuena» baizik. Eta orrelakoak gertatzen ari diran bitartean, asko eta asko lasai-lasai bizi ditezkenik...

* * *

ZERTAN GABILTZA? Abek ez dira nere itzak, «Akaitzenak» baizik; baiña orain nere egiten ditut. ZERTAN GABILTZA?

Lenengoz, gauzak garbi agertzeko, Euskaltzaindiak (?) eratutako sariketan gertatutakoa aitatu bear. Sariketa onetara, idazleak (bidezko dan bezela) beren izenak ixilpean bialdu bear zituzten. Baiña saria nori emango eta len argitaratutako idazti bateri! Jakiña, idazti au «Euskera batuan» idatzia! «Akaitzek» ontaz idaztean au dio: «Lehiaketan parte hartzaile bat —Euskaltzaindiko bera— kexu da eta oso arrazoidun, ene ustez. Horrelako lehiaketa batean, lan publikatu bati lehen saria ematea bistan da ez dela gisako».

«Euskaltzain» dan jaun onek dionez, bi eskutitz bialdu omen ditu «protesta gisa» Euskaltzaindira eta erantzunik artu ez. Orduan «Akaitzen» buru-austea au izan da, emen berriz bere itzak: «Zerbait oker eginaren susmoagatik ez ote zaio bada erantzun? eta irakurriaz nindoalarik, hara zer topatu nuen Euskaltzaindiko salatariaren ahotan jarririk: Euskaltzaindiaren gogoz bestera «tenemos derecho a expresarnos en nuestra propia lengua y no en esa maldita jerga que algunos han inventado».

Itz auek esan dituna, «Akaitzek» dionez, «Euskaltzaindikoa» da. Nola idatzi dezake orduan «Euskaltzaindiaren gogoz bestera?» Ez al da izango Euskaltzaindiaren «jauntxo batzuen» gogoz bestera? Ara nun egia gertatu «Jauntxo barzuek asmatutako euskelgaitz madarikatua» euskeranto **ori:**

Arren! ez gaizki egiña on bezela agertu, eta iñor nastu! Zer ikusirik ba al du gaiñera jaun onek esan zunak «dehiaketarekin?» Len esan bezela «dehiaketa» orretara ez al zituzten idazleak izenak ixilpean bialdu? Saritu baiño len iñork etzekin, beraz, (ez jakin bear beiñepein) noren lanak ziran.

Or gertatu danak, ez du, nere iritziz iñolako aitzekirik.

Irakurtzen jarraitu eta ara zer dion «Akaitzek»: «Horixe baino errespeto geiago merezi dugu euskaldunok». Bai orixe! egia! Euskaldunok gure izkuntzan irakurtzeko eskubidea degu. Eta noiztik digute «errespetoa» era onetako «izkuntza» darabiltenak?

«Artikulu, industria, prezioa, interdependenteen, (bai itz erreza ez al da ala) estudioa, autodeterminazioa, manifestua, afaldu partizipioaren infinitiboa...» eta abar. Au iñolako euskera al da? Eta españeratik artutako itzak naikoa ez ba'genitu bezela, orain «batasunaren» aitzekian pantzeratik artutako beste onelakoak ere ikusi ditzakegu; «Proposatu, fite» e. a. NAIKOA DEGU!

Nola siñistu dezake iñork orrelakoak egiten ari zaizkigunak euskeraren alde lanean dabiltzanik? Baiña, zoritxarrez, itxu asko da, itxuraz, gure artean, eta argi baiño argiagoa dana ere ezin ikusi!

AMALE'k

EUSKALTZAINDIKOAK

OSOKOAK:

Antonio Arrue
José Miguel Barandiarán
Louis Dassance
R. P. Xabier Diharce
Guillaume Eppherre
Eusebio Erquiaga
Juan Gorostiaga
Jean Haritschelhar
R. P. Dámaso Inza
R. P. Policarpo de Iraizoz
Angel Irigaray
Alfonso Irigoyen
Federico Krutwig
Antonio M.ª Labayen
Pierre Lafitte
René Lafon
Pierre Larzábal
Manuel Lekuona
José M.ª Lojendio
Juan San Martín
Luis Michelena
José M.ª Satrústegui
R. P. Luis Villasante
R. P. Antonio Zavala

OOREZKOAK:

Odón Apraiz
Isaac López Mendizábal
Gabriel Manterola

LAGUNTZAILLEAK:

Jesús Acha
MARIA DOLORES AGIRRE
Eugenio Aguirreche
Jacques Allieres
R. P. Francisco Altuna
José Luis Alvarez
Xabier Amuriza
Agustín Anabitarte
Pierre Andiazabal
R. P. Marcelo Adrinua
R. P. LINO AKESOLO
José Antonio Arcocha
Jesús M.ª Arenaza
Gabriel Aresti
Francisca Arregui
FERNANDO ARTOLA
José M.ª Azpiroz
Miguel Angel Astiz
JULENE AZPEITIA
R. P. José Azurmendi
R. P. Salvador Barandiarán
Iñaki Barriola
José Basterrechea
R. P. Isidoro Bastarrica
Alessandro Baussani
Juan José Beloqui
Iñaki Beobide
R. P. Imanol Berriatua
Hno. Valentín Berriochoa
Juliana Berrojalbiz
PEDRO BERRONDO
Antonio Berrueta
Milagros Bidegain
Antonio Bilbao
R. P. Félix Bilbao
Pierre Bordacarre
Karl Bouda
Joseph Camino
Julio Caro Baroja
Américo Castro
Jacinto Carrasquedo
Jean Curutchet
Jean Chabagno
Pierre Charriton
Jean Louis Davant
Pedro Diez de Ulzurrun
Jean Baptiste Dirassar
Pierre Duny-Pétré
JOSE MARIA ETXABURU
Jon Echaide
NEMESIO ETXANIZ
R. P. Aurelio de Echarri
José Echeandía
CARMELO ETXENAGUSIA
Juan Angel Etxebarria
Peter Echevarría
R. P. Francisco Echeverría
IÑAKI EIZMENDI
Jesús Elósegui
Karmele Esnal
Bernardo Estornés
Eñaut Etchamendy
Jean Baptiste Etcheberry
R. P. Etchehandi
Jacques Etcheverry
Pierre Eyheramendy
Patrik Farell
Jacinto Fernández Setién
R. P. Victoriano Gandiaga
JUSTO GARATE
Marcelino Garde
JUAN GARMENDIA
Salvador Garmendia
R. P. Angel Goenaga
Ignacio Goicoechea
R. P. Juan Goicoechea
Juan Goicoechea
Xabier Guereño
Pierre Gilsou
Marcelin Heguiaphal
Jean Hiriart-Urruty
Nils M. Holmer
Mariano Iceta
R. P. Joseba Inchausti
Roger Idiart
Arantza Idiazábal
José María Iribarren
Michel Itcaina
Antoinette Lacarra
R. P. Ignacio Larrañaga
Emilio Larre
Mikel Lasa
José Manuel Lasarte
Juan María Lecuona
R. P. Gabriel Lerchundi
Xabier Lete
José Luis Lizundia
José Antonio Loidi
Gerardo López de Gereñu
R. P. Fernando Mendizábal
José Juan Bautista Merino
Marie Jeanne Minaberry
Jon Mirande
R. P. JUSTO M.ª MOKOROA
Telesforo Monzón
R. P. Luis M.ª Múgica
R. P. PLACIDO MUJIKA
Jean Marbaits
Jesús Oleaga
R. P. Omaechevarría
R. P. SANTIAGO OANAINDIA
JON OÑATIBIA
Josu Oregui
Dominique Peillen
XABIER PEÑA
JAIME KEREXETA
Francisco Javier Quintana
Rudolf de Rijk
Ramón Saizarbitoria
Etienne Salaberry
Carlos Santamaría
Ibon Sarasola
Manuel de la Sota
Dominique Soubelet
Juan Thalamas
Norbet Tauer
Francisco Tirapu
Antonio Tovar
Miguel Javier Urmeneta
Ignacio Urquijo
Thomas Uthurry
Madaleine de Yaureguiberry
Pedro Irízar
JOAQUIN ZAITEGI
Gabriel Zapiain
AMBROSIO ZATARIN
MANUEL ZIARZOLO
AGUSTIN ZUBIKARAI
Aniceto Zugasti

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

GAZTE

ZAZPI EGUN

Osteguna.—Zakur bat ostikoz jo dute kalean; Nik uste nuen, oraindaiño beiñipein, baloiari bakarrik ematen zitzaiola gaur egun ostiko. Ikusi dut, nere iritzi edo uste ori, okerra zela. Berebillak. Tolosa'ko karrikan barrena, laisterka bizian pasatu dira; Putzo-zulotan sarturik, oiñez-koeri erropak zikinduta utzirik. Amon bat, kalean, alde batetik, besteraiño, pasatu naiean dabil. Kezkatsu eta beldurrez. Berebil bat ere ez dut ikusi gelditzen, eta andre gaixoa an gelditu da, geldirik, laguntzaren zai.

Ostirala.—Ernani'ko andereño batzukin egon naiz, alkarrizketa baten ondoren alkar ezagutu gera. Andereño gazte oiek, emango diote ikastolari merezi duen indarra. Benetan iruditu zaizkidan, burrukalariak, euskaldunak, Kristo'ren jarraitzalleak. Amar minutuko alkarrizketa, motxegia iruditu zait. Benetan, gogoz aditzen geranean, ez luke denborak kontatu bear. Eutsi eta jarrai Ernani'ko andereñook, Alkarrekin, alegindu bear degu gure erria goratzen.

Larunbata.—Andoni Korta il da. Errenderi'ko idazlea; «Añarbe» deiturakin izenpetzen zitun bere lanak. Eriotza berri garratza da; batez ere, maitatzen dakiñantzat.

Andoni'k lan asko egin zun euskalerriagaitik, eta orain egunak igaro ondoren, bere animaren alde otoitz bat egitea eta beragaz eskeintzea baiñon obeagorik ez da izango noski. Berak Euskalerri'ko goraberak maitatzen zitun, bide orreri jarraituaz, guk ere, eskeiñiko diogu berari omenaldi sakon eta egokiena.

Igandea.—Mezetan jendea serioa iruditu zait; ixilik, abestu gabe, bertan parte artu gabe. Zutik, jarri, belaunikaturik, gero exerita, ostera zutik eta abar. Urduri ba'legoke bezelaxe, ordulariari begiratuaz, kalera irtetzeko presakin.

Baxoerdi batzuk edaten aditu gera algunak. Itz asko egin degu gai asko erabilliaz; baiñan geiegi aztertu gabetanik.

Dantza-lekuak beterik arkintzen dira. Tabernetan, gizonak, telebistan ari den partiduari begira, eta andereak berriz, arpegi luzeakin. Aldamenean, aurrak karraxika. Kaleak utsik arkitzen dira. Euria ari da ta gaiñera denbora benetan oso otza dago. Ez zait kinieletan egokitu sarikik.

Astelena.—Gaur ere. «Uxola'kin» toaptu naiz, Tolosa'n. Gu bion alkarrizketatik, beti kezka bat datorkit. Lan egiteko kezka. Izan ere «Uxola» ez da geldik egoten dana, beti darabilki zerbait buruan. Biok ulertzen gera, naiz adin berdiñekoak ez izan. Neretzako «Uxola», ni bezin gaztea dala iruditzen zait. Antzerkiak sumatzen ditu, berdin nobelak (Noiz argitaratuko ote dira bere lanak) milla artikulo bidaltzen ditu, euskal izparringietara, batez ere, AGUR eta GOIZ-ARGI'ra. Gure alkarrizketa bukatzean, or joaten da eskuak patrikan ditularik, zerbait pentsatzen, zerbait berri egiteko asmoakin.

Asteartea.—Nere lantegiko lagun batekin eztabaida bat izan dut. Bera ez da euskeraz mintzatzen, ala ere, Euskalerria maite dula dio. Ikastoletan aurreri etzaiela erlijiorik erakutsi bear aitortzen du, gaiñera, neska-mutillen arteko amorioak libreak izan bear lirakela.

Ezkondua da, eta bi aur ditu, bat zazpi urtekoa eta bestea bostekoa. Biak ikastolara joaten dira. Nik esan diotenean, bere alabak ere, mutillekin edozein modura ibilli bear dutela, abereen antzera... berak, ezetz! erantzun dit. Egia esan, gizajo bat iruditu zait. Nork engaiñatu ote du?

Asteazkena.—Gabeko beratzi ta erdiant tren batean sartu naiz etxera inguratzeko asmoakin. Ez dut gauz askorik ikusi, dana illun zegon. Trenean, jendeak etzun aborik irikitzen. Erri bakoitzeko geldi-tokitan, trenen barrura igotzen zen jendea. Urnieta'n, mutil gazte bat igo da. Txistua jotzen asi da, euskal abesti ezaguna, «Jaiki, jaiki, euskaldunak...»

RAMON ZAPIRAIN

UDABARRIAREN SARRERA

Gaur epailla'ren 21'an Agur esan dautsagu neguari; eta udebarriak bere ateak zabaldu dauskuz.

Oso egun polita egiten dausku, ia ba olan jarraituten daben.

Geuk bere Udaberriari aurrera urten bear dautsagu, beragaz batera gauza barriak egiteko pozez.

Joan zan urtean gauza politak agertu ziran erri askotako gazteen artean; baten bestean baiño politago, baiña danak izan ziran oso politak eta alaiak.

Emen urte-arlo onetan asiten dira gure jai asko.

Joan ziran jai asko dira orain burura ekartekoak, euretan ikusi zan erriko euskal-zaletasuna eta beste batzuetan betiko naigabea.

Jai politak egozan: Emen gure erri onetan Zeanuri'n, Areatza'n, Igorre'n, eta beste baserri txiki askotan be bai: Undurraga'n, Ipiñaburu'n, baita Dima'ko OBA'n eta ZEBERIO'ko baserri askotan be bai.

Aurtengo urtean ia ba beste falta diranak be bururatuteko antzera egiten diran, gauza pozgarria izango liteke ta.

Uste dogu Zeberio'n Santa Cruz' egunean lenengo jaiak diran lez gauza ikusgarriak izango dirala, egia esateko igazko urtean abeslarien txapelketea alderdi batera itzita, gauza andirik ez zan egon-eta.

J. M.ª ASTONDOA

GIZADIAREN ONDASUNAK

Gizadi guztiaren onerako Jaungoikoak eratu dau lurra ta onek daukon guztia. Onela ba, ondasun oneik gizon guztietara eldu bear dabe, zuzentasun guztiagaz, borondate ona bitarte dala. Mota bateko naiz besteko jabetasuna izan, erriaren beartasunera egokituta ba'dagoz, iñoiz ez dogu galdu bear geure begietatik, gizadiak daukezan aberastasunak, ondo, erabiltea.

Onegaitik ba, gizonak, ondasun onek erabiltean, buruan sartuta ez dau euki bear, bere inguruko gauzak bereak bakarrik direla. Orrez gaiñera, pentsakera onen bidez, beste guztienak be ba-direla ikusi bear dau.

Gizon guztiak dauke eskubidea ondasun batzuen jaube izateko, baiña ondasunak negurriz izan bear dabe geuretzat eta geure sendiarentzat bear dan aiñean.

Au da gure eleizaren irakatsia, beronek irakatsi eutsen ba aberatsei be, txiroei laguntzera beartuta dagozela eta ez bakarrik eurak bear ez dabezan ondasunekaz.

Guztiz oso beratsu bizi danak, besteen ondasunetatik artzeko eskubidea daukala deritxat, bere zoritxarrak arinduteko. Munduan gure egunotan dagozen beste gizon goseak ertzetuta egonda, Kontzilioak guztiori deitzen dausku, naiz menpeko, naiz jabe, esakera au goguan dogularik: «janaritu egizu, gosez ilten dagoana, janaritzen ez ba'dozu, il-erason egiten dautsozu-ta». Bakoitzak bere al-izanak, eskeiñi dagiozala, bere ondasunak, batez bere, beartsuei, nai izan gizon nai erri, euren buruari laguntzeko ta gerorako etorpidea emon.

RIKE'TAR JON

ITZALDIAK

«EUSKAL KULTUR MINTEGIA»k eratuta, Deusto'ko Ikastola Nagusian, urrengo itzaldi oneik izango dira il onetan.

Jorraillaren 13'gnean, ostegunez, 7 ta laurenetan.

Itzlaria: IÑAKI LARRAÑAGA

Gaia: Euskaldunon gizarte-auzietzaz izango da, ta urrengoan, Goierri'ri buruz, bertako ekintza-oarpen zeatz bat.

* * *

Jorraillaren 24'gnetik 29'gnera, aste oso baten, ta ordu berean, 7 ta laurenetan.

Itzlaria: JULIO CARO BAROJA.

Gaia: Euskal edestia, erderaz «Perspectiva para la investigación de la Historia Vasca» gazteleraz itz egindo dau-ta.

* * *

Ordain-saria: 200 lauerleko, «Euskal Kultur Mintegia»n izen emoterakoan, Jorraillaren 10'etik aurrerantz. Orduak: goizeko 11'etatik ordu batak arte, ta arratsaldeko 4'retatik 8'retara.

ONA ta RAM

EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU



Elgoibar'en batu zana Elgeta'n osorik

ELGOIBAR'TIK ELGETA'RA

Orain 39 urte dirala, Elgoibar'en batu gintzazan euskal-idazleok. Orduko oroitzapenak zuzpertuta, joan zan illaren 25'ean, Elgeta'n batu gintzazan gure aldizkariko idazleok. Pilla ederra, !eundazak!

Egoaldi bikaña izan gendun. Obarik ezindakoa. Eskerrak orregaitik «AGUR»eko eratzalleeri, ori lortu al izan ebelako. Bai-daukie orreik nunbaiten «influenzia», alako egoaldi zoragarria lortureko.

Giro orrek bultzauta-edo, Durango aldean gintzazanean, norbaiteri kaxkarrean sartu jakon, Garai utirxoa ikusi bear gebala. Ezpatadantzarien urixka ori, gure begien aurrean jarri zanean, kanta zar oni emon geuntson:

Garai'ko plazan otea loran,
Ermua'n Aszenzioa;
Dantzan ikasi gura dabena,
Beseitu-Beiti'ra bijoa.

Eldu gintzazan.

Garai'ko plazea argi ta garbi egoan, txukun. An ez egoan otarik.

Ermu'tik igaro gintzazanean, an bez Aszenziorik. Eibar'en geldi unetxo bat eta Ipurua aldetik gorantz, Elgeta'ra.

Emen be otarik ez! baiña lorea? Eleiz aurreko plazan eundazak euskal-idazle aurkitu gebazan, loran!, pinportatik urten guran, usaintsu agurka.

Eleiz aurreko armailletan zutik, argazki bat edo beste egin bear zirala-ta, argazkilariok euren tramankuluak idazleekana zuzendu ebezanean, orduantxe etorri zan Aszenzioa!

Mirari batek bultzatuta lez, eleizako kanpai guztiak asi ziran dingilin-dangalan eres-aldi alaia joten, unetxo orreri asperen berezia emonaz. Poz zarradea nabaitu neban.

Beraz, eskuetan daukozun ale onetan ikusiko dozun argazkiren batek «Yoale maitearen asperen eztia» daroa; gozoa, itxaropentsua.

Ondoren, Martintxu'ren jatetxera bazkaitara. Emen, 132 lagunentzat, bakotxak bere lekua ta leku bakotxean bere tokia, txanteltxoen bidez nun exeri adiraziaz. Ederto eralduta guzti-guztia!

Exeri nintzaneko, arrigarriz inguratua nintzan. Ezker aldean «Ira» donostiar idazle ta andereiño argia; eskubian nire emaztea; Ur-urre, «Bordari» trebea; aurrez-aurre «Mirentxu» elgoibartarra, orain 39 urte bazkaria emon euskuna; «Basarri» ta «Iziartxo» senar-emazteak; danak lagun zarrak, danak adiskide maiteak. Axe atsegiñezko jarduna!

Bazkari bitarte arek, zeru txiki bat irudian: «Bordari»k zirikatuta, izlariak izlari altxa ziran; kantariak kantari; eta munduko bertsolaririk onena, «Basarri», bertsolari ta olerki-izlari. Izan ziran baita be txistulari ta dantzari. Gazte pilla aundia ameslari.

Erabagiak, erabagi: Gure amabosterokoa, asteroko biurtzea. Eta... eta... garaiz, beste batzar baten biltzea. Zertarako? Gure asterokoa eguneroko biurtzeko? Ori, ori, mutillak!

—Astotxoa; ardo ona al dakarzu?

—Berak esango dau. Arre! arre! Egin ez daiguen barre!

ABELETXE



Elgoibar'en batu ziran gazte areik, barriz gaztetu!


AGUR ELGETA'N

Lankideak eta alkar-laguntzailleak mai baten inguruan noizean bein alkartzea gauza egokia ta bearrezkoa da. Lanak an ditu bere estualdiak eta larriuneak, eta mai-inguruan barealditxu bat izaten da. Lan bat guztion artean egin arren alkarragandik urrin bizi izaten gara, mendi aundiak eta ibai zabalak bitarte dirala. Pozgarria, benetan mai-inguruan, ordu batzuetarako baiño ez ba'da be, alkartzea.

Epaillaren 25'ean onelako ordu pozgarriak igaro genduzan guk, AGUR zaleok.

Geuk uste genduan baiño geiago alkartu giñan: eun eta ogei ta amabi. Jan aurrean, berbaldi labur eta mamintsu baten, alkartze aren garrantzia azaldu euskuen. Gero bazkaria, ez jatun atsegin-zaleak egiten daben lakoa, gosea kentzeko bestekoa eta gaiñera pozaren ezaugarri diran akeita ta abar.

Batzarkideen urteai begira jarten ba'giñan, guztietarikoak egozan. Izkuntzeari begiratu ezkero, alde guztietan euskerea entzuten zan, geiena gipiuzkoerea ta bizkaierea. Izkuntza-aldetiko eretxiak konturatu ezkero, guztiak, uste dot, erri-bide-zaleak zirala.



Baiña, ainbeste giñean ezkero, ezin guztiak ezagutu, ezin guztiak agurtu. Orregaitik, baskal-ostean berezko agertzaille jator bat «Bordari» agertu zan eta berak an ziran euskalzalerik ezagunenak aurkeztu. Eurak berba-aldi laburtxu bana egin eben, eta txalo beroak entzun ebezan.

Gero gure gazte-taldeak dantza-aldi pozgarri bat eratu eban. An egozan, orretarako, Mungi'ko txistulari AGUR-zaleak. Eta dantzari gazteen artean ain gaztea ez zanen bat be ikusi gendun. Alaitasuna ugari egoan.

Eta gero an ziran abeslari ospetsuak, euren abestiak bide, jaiari giro berezi bat emon eutsoen: Estitxu, Joseba Zarraga, ta Zabalondo. Eurentzako be txalorik beroenetarikoak.

Eta gero, etxera baiño len, alkar agurtzeak: Zu nor zara?... Bai zure idazlanak argi-argiak eta atsegingarriak dira. Beti irakurten dodaz. Eta zu?... Bai, gai sakonak erabilten dozuz.

Bakotxa bere bidez, menditik bera. Gogoak sendoago eta biotzak pozago. Jai onen eratzailleai eskerrak, eta noizean bein barriro eratu, gaur etorri ez diranak urrengoan etorriko dira. AGUR'en sendia geroago eta obeto alkartuko da.

OLAZAR MARTIÑ'EK



AN GIÑAN


Aspaldiko ametsa lortu dogu. Euskera errikoi aldekoak be bildu gara mai baten inguruan. Ez dogu ziñik eskatu, baiña an giñanok beteko doguz gure buruak eta biotzak erakusten dauskuezan lan saillak. Bakoitza bere bidetik aske, baiña elburuan bat egiñik jarraituko dogu. Gure abotsa be entzungo da, ta gero erriak erantzungo dau. Ixillik dagon *erriak*, baiña jakituri bereziaren jabe dan *erriak:* Berak du itza.

Bitartean, Elgeta ez dogu aztu bear, eta urte zear beste Elgeta asko ezagutu bear doguz, baiña bazkariaren ordez, *lana* izango dogu maiburu. Lan eta lan, aspertu barik; apurka-apurka «gure-argia» be zabaldu daigun.

Ikusi zanez, eta danak ezin izan giñan batu izan, asko gara; zar eta gazte; jakitunak eta ikasi nai dogunak... beraz, «illeta jotzailleak» ez dauke ekiñaldi makala! Datozela; gu aurrera! Aita Mokoroa'k esan euskun bezela: lengo ta betiko bideak landuaz eta aberastuaz alkartuko gara batasun korapilloan.

«Ekin eta Jarrai»... baiña euskerearen, betio euskera errikoiaren alde!

ARENAZA'K



AMA ALA UGAZAMA

Bigarren asmo barik euskerea maite daben idazleak, jakin eta etorri al izan ebenak beintzat. Elgeta'n ziran.

Euskerea maite; zein euskera? Euskerea bera, gizaldiak zear gure erriak, berez, sortu daben izkuntza eder au.

Bigarren asmorik ez? Ez! Ez da gure Ama tresna lez erabilliko dozuna; izketarako bai, orretarako da-ta, baiña, bera, erasoak artzera aurrera botata, atzetik beste asmo batzuk sartzeko, Troia'n sartu eben zaldiarena eragiteko, ez.

Ta, zaldiarena eragin, eta tarteka, mandotzar bat izatera biurta nai izatea, ori da beste orrein jokabidea; ta zuk ondo dakizuna, naita oial beroak ezartzen ibilli mando-eulion eztenkaderi.

Era askotako mando-euliak dituzu: baltzak, gogo-bideak utzita igesik joan diranak; gorriak, iñoren izerdi-odoletik bizi nai dabenak; zuriak, gizon izatera eltzeko ikasketen nekerik jasan ezin dabenak; urdiñak, etxe aberatsetako seme alper aita zar burgesaren dirutik pozik bizi diranak; arreak, kafeterietako kee arteko iraultzaleak; oriak, soiñak indarrik dauan artean danetik dana ta ugari emon nai dautseenak... Orreik, danok, euren artean asarre ta burrukan ba'dabiltz be, euskaldunaren izatearen aurka bat-eginda ikusiko dozuz. Ta ezaugarri, Troia'ko zaldi billa ibiltzen dirala danean, izkuntzan, kiroletan, jaietan, eleizkizunetan, ikastoletan, konbentuetan, neska-artean eta kafeterietan; ta beti-beti, azpijanean, euren benetako nortasun gaixo illun orretan.

Ez zarala oartu esatera ba'zatoz, joan ta begitu espilluan.

BEISTEGI'TAR JON



ARGAZKIAK

ANDONI argazkilariak etara ebazan aundiak, agertzen diran bostak, ta oindiñok beste pillo eder bat dauka guk be ikusi ez doguzanak. Donosti'tik urrean bizi zareenok berari eskautu egiozuez, ba-dakizue, Colon egurastokiko 9'an bigarren bizitzako B izkidun atean eskatu. Emen agertu ditugunak oneixek dira:

Lenengo orrian.—Ordu biak inguruan artu zana, oraindik ez ziran danak eldu.—Ta, Mokoroa ta Gallastegi Aita jatorrak bestean.

Laugarren orrian.—Ia berrogei urte lenago Elgoibar'en egin zana.—An izandako zazpi euskaltzale bizkor Elgeta'n barriz alkartuak; euskeraren aldeko zazpi bizitza luze, or.—Gazteen maia.

Bostgarrenekoak.—Estonba Aita bere saria jasotzen, gure Gotzon zanaren omenez egin zan sariketea irabazi euskun.—Tolosar Uxola adizkide zarra, berea jasotzen.—Jantokiko zati bat.

AGÜR



BAIÑA...

Baiña... baiñak, ortuen. Aintxiñetik entzundeko esana, bai.

Baiña... ez al da mundue ortue...? Ortu aixe lez mundu, eta munduko gora-berak, joko era bardin-bardiñean subertuten jakuz. Aza buru ederra, aza koxko igerra... Porru ederrak, porru luxanga makalak...

Gizon burutsuek, aza buru ederrak lez; gizon menperatsuek, gorriñek jotako porruek lez... Bai, gizona porruek lez izeten: lodi ederrak, eta porruek lez izeten: luxenga estu ta arnasa bakuek...

Lege bat onek danok bardintzeko...? Lege-zimaurre onek danok bardin ongarritzeko...?

Bai, nere irakurle lagun onak, bai. Lege ori danontzat egindakoa da. Gizonak gizonentzat egindako lege guztiak onak dira, bai orixe.

Baiña... (ostera be?) Baiña, porru eder, aza eder, kalabasa eta melo eder, zimaur edo lege bardiñez, beti ederrak; ederrauek, beti jaikigiñek... lur eder ta mamintsuan jaio, ta bizigozamen onekuek. Baiña... (barrido) orrek, porru, aza-buru, kalabasa, melo... eurok berberok ba'litzez bustiña lurrien, atxarteko arri-lurretan, kiskillek eta illek...

Gizona, bardi-bardin. Zelako lurretan alako zapi ederretan jaio, eta azi; alako izen eta bizi, kalabasa ta meloa izan arren.

Alako ortue, alako mundue...

Lurren kontue dala, jauna.

Lur gaiñea bardintzeko, lurpera juen bier. Emendik egun urte barru, danok bardiñ.

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

«ETORKI» EGO-AFRIKAN

«Basque dancers arrive in city». «Etorri» taldea urira iritxi da. «With 600 kg. of overweight baggage. «Seireun kg. traste (soiñu, jantzi ta beste) neurritik gora. «Euskal erria agerkaia». Onela azaltzen zuan «The Pretoria News Triday» izaparringiak, Otsailla'ren 4'gnean.

Aurreko idazkian aitatutako tarjetatxoan Ciudad del Cabo, egazkiñez ikusita agertzen da. Lenen maillan Eri-Etxea eta Sendakintz-Ikastetxea. Auen aldamenean autopista bide bi, gorako eta beerako, bakoitzak 5 bideekin, 5 berebil batera ibiltzeko eran. Itxasoa eta mendi goituak, urrunean. Eta «emengo giroa Euskalerrikoaren antzekoa da. Egon gera bai 45 gradutan emendik milla kilometrora».

«Ziur aski gure aktuazio obenetakoa, Ciudad del Cabo'n euki gendun, joan dan astelenean, 11'gnean Antzokiak baditu milla ta berreun exerleku. Guztiz betea eta jende aundiki eta aberatsekin». Akatsak faltik iñun ez da: «egia da jende guztia, zerri batzuk zirala, razistak. Emen, txuriak, geienetan, razista amorratu batzuk dira. Sudafrika guztia esan liteke ola dala. Emen dana bereizten da. Zuriak agintzen du. Autobusak beltzentzat, autobusak zurientzat; edantokiak beltzentzat, edantokiak zurientzat; komonak beltzentzat, komonak zurientzat. Eta beltzen alde zeredozer egin nai duana bidalia izaten da bereala»:

«Soiñez berealdikoak dituzu emengo zuriak. Englandar eta holandarren naasketaz, nere iritziz, kasta eder bat atera da. (Boers deritzaie) Goituak, indartsuak. Neskatxak ere bai... Paris'en bertan ez da ikusten orrelako emakume ederrik. Onegatik ez gera aspertzen autografoak egiten, beti eske datozkigunean».

Urietan jarduten geralarik, ea ez degu traturik beltzekin. Alare ainbat beltz abenda bereizten ikasiak gera. Serbitzariak, batzuek ordu bete bear baxo bat ur ekartzeko, besteak berealaxe batean...»

Dana dala, goazen «Etorki»ren agerkizunaz jarraitzera, Saioaren urrengo egun batez izparringi berak, onela zion: «Something old, something new...» Guztiz zaarra, guztiz berria... Euskaldunen kultura misteriogarria bakarra da Europa'n».

Santimamiñe baleta, Kaxarranka, txistua, dultzaiña eta «The primitive wooden percussion instrument is called the txalaparta». «Tam-tam» lurraldeetan txalaparta jotzen alajaiña!

Abegi onena egin diete. Jaitxoak eratzen dituzte euren omenez. «Dan onena guretzat» «Oso txalotuak gera».

Baiñan «Etorki» munduan zear dauden euskaldunei, bereziki bere sorterriaren oroitza eta beroa ematera dijoa. Onela adierazi nai du esaten didanean: «Eguneroko ogi jatea bezela gertatzen zaizkigu gure ager-saioak. Antzokiak beteak ikusten ba'ditugu ere. Txalo asko, baiñan, egiz ajola gutxi, ontara ere oitu egiten da bat. Askozaz biotz-zirrara aundiagoa artzen degu noizik-bein euskaldunen bat agertzen zaigunean agurtzera. Emen ere bai bai-dira...»

«UXOLA»

GURE KIROLAK

Zestua'ko erria esku-pelotari arrobia dalarik, gaur egun pelotari gabe aurkitzen gerala, ezin uka. Garai baten, erritik bost edo sei pelotari, partiduak jokatzera, ateratzen etzan iganderik ez genduan ezagutu. Pelotariak berriz ezin obeak izan ditugu. Leenengo maillakoak eta bigarrenekoak.

Pelota-tokia irekia danez, partiduak udaaldian bakarrik jokatzen dira. Pelota-toki ontatik, erritik at, pelotari bikaiñ aunitz izatera eldu ziran. Alegia, auzoko gazteok adibidez: Atano, Tapia-anaiak, Artadi'kotxikia ta Ogeta. e. a... Batzuk bakarrik aitatutzen ditut, asiko ba'nintz Zestua dala-ta, pelotari izatera iritxi diranen izenak aipatzen, orri guzi au, pelotari izenez beteko nuke.

Orregatik beste bide bateri elduaz, pelotajokoa dala-ta, gai onei jarraituaz, zenbait gertakizun azalduko ditugu.

Aurten, gaztetxoentzat, txapelketa bat antolatu dute. Aspalditxoan pelotari buruz oso illa ta motela aurkitzen zalarik, Imanol Sagartzazu'k olako suspertu berezi bat emanik, norgeiagoketa ontara; berrogeitabi bikotek beren izenak eman dituzte. Berrogeitabi pelotari bikote, bost mailletan banatu dituztelarik, eundo ere, ez dugu olakorik ikusi. Tamalgarria benetan pelota-tokia irekia izatea! Baiña, ala ta guztiz, partiduak izaten ziran egunetan, Pelota-tokia beterik aurkitzen zan.

Itxia izan ba'gendu, zalantzarik ez, pelotari izatera bat baiño geiago iritxiko litzakela. Beraz, bateren-batek arazo onetzaz gogoraturik, pelota-tokia itxiko duen itxaropenarik ezin galduko dugu.

Esku pelotarien zenbait arazo

Lan batzuk egiñez, Donosti'ko uri-burura joan bear eta jakiñik, gaxotegian eskukopelotari bat gaxorik, gerriko miñez geiago ezin da, lau aste ogean zaramazkiña, nolabait aurkitzen zala-ta, adiskide auxen ikustera joan nintzan. Pelotariek ere, bera ikustera joaten ziran, noski. Ikustera joan zitzaizkion eta antxen bere gelan bi pelotari gertatu ziran. Beraz, gure solasa geintzuena beintzat, pelotari buruz izan zan.

Pelotari oietako batek, ogean gaxorik zegoen pelotariari, esaten zion: «Neuk ere, ik esan ta aitatutzen dituken miñak, nabaitzen dizkiat». Talde onetan, beste pelota-zale bat aurkitzen zan, eta onek, pelotariei galdera bat edo beste zuzendu zizkien.

—«Enpresario» ta Garzia-Ariño artean zer gertatu da? Errioxa'ko izparringietan zerbait irakurri dut.

Pelotariek erantzun zuten.—«Ori dana, «enpresarioek» pelotariei geiago begiratu ta biozki ez dituelako zaintzen, gertatzen da.

—Bai ongi erantzun duzute, arazo auek alkar-izketa jator baten bitartez erabaki bear dira.

—Baiña ez al zaizute iruditzen, dirutik at, lendabizi pelotaria gizon bezela, pertsona antzo tratatzen ikasi bear dutela?

—Bai, egia diozu, emen aurrean ogean ikusten dugun pelotari au, gerriko miñez gaixorik aurkitzen da, ta nik ere, emen sorbaldean zerbaiten eragozpena nabaitzen dut.

—Pelota - tokietan bear dan bezelako «dutxarik» eta bestelako laguntzarik baalduzute?

—Laguntzarik esaten didazu? Adibidez: Bergara'ko pelota-tokian irugarren partidua jokatzen duten pelotariak, «dutxarik» artu nai ba'dute, ur berorik ez daukate. Eta erritxikietako jaietan, eak, alegia enpresarioak», pelota partiduak eratzen dituzte, baiña pelotarientzat jokatu-ondorenerako bear dituzten «dutxa» ta beste zenbait bearrezko gauzetan ez dira batere arduratzen.

—Leen ere, beste orrenbeste entzuna nago, ta esan ere bai, adibidez: ostikoketalariak, naiz Donosti'ko taldean jokatu, naiz Bilbo'ko taldekoak izan, Bilbo'koak, Donosti'ko taldearekin jokatzerik ez dauka. Eta Donosti'koak, Bilbo'koarekin ere ez.

—Eskuko-pelotarien «enpresagaz» berdintsu gertatzen da. Zuek pelotariok «Enpresas Unidas» gaz jokatzen duzute, auegaz «fitxatuak» zaudete, beste «enpresagaz» ez daukazute jokatzerik, baiña ostikotalariak duten alderdi onik, zuek ez duzute. Auek, euren «masajistak» dituzte, euren sendagilleak, e. a. Gauz auek bearrezkoak diranez, benetan eta gogotsu artu ta lortu bear lirake, baiña ez dira lortzen. Zergatik? dakiguna auxen da: Esku-pelotak bizi nai ba'du, beste bide bat artu bearko duala.

SAGARTZAZU'TAR JOSEBA

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

Apartado 1.510 **BILBAO**

Izen - abizenak .....

Bizibidea ta lana ..... Urrutz .....

Zuzenbidea ..... Urrutz .....

Erria ..... Eskualdea .....

Bidali egidazuz arren reenbolsoz jasotzerakoan ordaintzeko / illeroko amabi epetan ordaintzeko (1)

- ☐ AZKUE'REN IZTEGI NAGUSIA (Ale bi)
- ☐ LABAYRU'REN BIZKAI'KO EDESTIA (Amar ale)
- ☐ GOROSABEL'EN GIPUZKOA'KO JAKINGARRIAK (Lau ale)
- ☐ AZKUE'REN EUSKAL ABESTI TXORTA (Ale bi)
- ☐ EUSKALERRI'KO EDESTI-LUTELESTI IZTEGIA (Ale bi)
- ☐ LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA (Ikusgarriz betea) (Amar ale)
- ☐ R. I. E. V. Euskal ikasketen bildumea (26 ale)
- ☐ MORET ETA ALESON'EN NAPARROA'KO EDESTIA (Zortzi ale)
- ☐ KEREXETA'REN ARMARRI TA IZENEN IZTEGIA (Lau ale)
- ☐ EUSKAL GIZA-IKASKINTZA (Erriarteko lenen...) (Ale bat)
- ☐ GIARD'EN BILBO'KO EDESTIA (Lau ale)
- ☐ MOGEL'EN PERU ABARKA (ele bitan) (Ale bat)
- ☐ GARMENDIA'REN ITXAS IZTEGIA (Ale bat)
- ☐ CALERA TA BUSCA'REN EUSKAL SUKALDEA (Ale bat)
- ☐ BILBO'KO ATHLETIC'AREN EDESTIA (Ale bat)
- ☐ LAFITTE'REN AZKUE-IZTEGIARI EZARKETAK (Ale batzuk)
- ☐ Euskal Jakintzadun idazti onein edo batzuen barri nai neuke jakin bakarrik

OARRA: Idazlan bakoitzetik ale guztiak erosi bearko dira, ta ez da onartuko bakoitzetik ale banakak erostea, eskatzean ez ba'da bestera azaltzen.

NOIZKOA: IZENPENA:

(1) Zear-marratu nai ez dana.
Illeroko ordainketak ezin izan 200 laurlekotik bera.

Arratia

Lentxoago batean deika ta erantzuneske agertu nintzan Dima'ri ta Arratia'ri buruz, eta ona emen non doguzan bosteren erantzunak Bizkarguenaga'ri ezetzka.

Bustintza'k; Artaun'dik; J. M.ª Zuazua'k, erbarrendik; Txomin Errota'k (Etayo'k), Mugatza'tik; G. Aldai'k, Ikuturri'k (guztiok dimatarrak) eta Joanpe'k Arteaga'tik, ezetz diñoe. Olan izanik, bada, eta erantzun baietzkorik izango ez dogun arte, Dima, Arratia ez dala esan bearko. Beraz. Txomin'ek irabazi, Antonio'k galdu, zati baterako bakea lagunarteratu dogu.

* * *

Txorri-erritarren batek txarria ilterakoan Bilbo'ra begira jartzen ei-dau, odolozte ta saieskiak errezago Bilbo'raturik lankideekaz zilbor betekada egiteko.

Garizumako aragi-izte egun batez, an non etorran Pazientzi adizkide on-ona bere biotza bazen andia ta zabala zan besapekada txarrikiagaz. Eta ordubiak aldera, aragi-iztea bere bai-zala-ta, eztabaidan ekin ondoren, sekula sekulorungo tripakada egin eben.

Zauka-maukan eskua izan ebenak: Areatza'tik berreun kiloko gizontoa; Arteaga'tik, askozaz mirrixagoa ez dan bat; Txori-erritik, odolozteen jabea, ta andaluzitarren bat edo beste. Gosez ba'ziran, bete bere bete egin ziran. Ondorengo iru egunetan baiña, ez-ziran guztiak ondo ibilli: batzuek arnasaz bete eziñik goitik, besteak putz-ustu eziñik beetik.

* * *

Epaillaren 25'gna. egun zoragarria, illuragarria. Euskeraren bizkar-azurra, pautzik gabeko gari-soloa Intxorta «gomutagarriaren» orpoan, Elgeta'n izan genduana. An bai ba-zala biotzezko anaitasuna, benetako alkartasuna ta egiazko batasuna. Antxe bai izan zala Arantzazu'ko batzar «pamatua» txokoraturik itxi dauan egun gogoangarria, euskal-jakitura eta euskeraren EUSKALTZAINDIA.

Txalogarriak bertan izan ziran areitz ezkurtsuak eta ezkur zaarretatik jaiotako landara barri errotsuak.

Eundakak anai-arreba, Gipuzkoa'tik eta Bizkai'tik, euskereak euskaldun izaten iraun dagin, indarbarritzeko, ustelkeriari esia jartzeko goi aretan besarkatuak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arrasate

INGURUKO ERRITARREI

Emen gure inguruko erriak lozorroan dagozala esan leike. Erri oneik, Ezkoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Bergara, Soraluze ta Aramayo, orain 40 urte oso euskaltzale giroa zeukaten eta nunai egozan euskal-idazle ospatsuak, baiña garai ontan ez-da ikusten erri-idazle euskaldunik. Bai,ba-dakit Oñati'n ba-dala idazle jator bat, Erri-Zale, lanean diarduana ta asmo onakin jarraitzea nai duana «AGUR» onetan idazten, baiña ez da naiko, eta len esandako beste errietan be bear litzakez idazle batzuk.

Jaiki ba-da eta goratu daigun euskera gure aldizkarietan idatziaz.

TXIMISTAREN INDARRA

Gure Udalaitz mendi ederrean Udalaitz zaleak ipiñitako idazki-kutxa tximist zantar batek puska eta birrindu du. Laister beste barri bat ipintzeko asmoa dute, lengoa bezin edo politagoa.

MIXIÑOAK

Aita Arruti'tar Polendin Prantziskotarrak emon da izan ditugu Prantziskotarren eleizan, aste santu aurreko astean. Euskera eder eta etorri onekoa dugu Aita gazte au, eta eleiz arazoak ere ederto agertu zizkigun. Tamalez jende gutxiegi batuten zan berari entsuten, eta ez dakit zergaitik, ba-da beti entzun izan dugu aspertuta dagozala gazteak zarrai entzuten, baiña ikusi da mixiolari gaztea izanda ere ardura gutxi dagola egia entzuteko.

ELGETA'N

Egun zoragarria an izan giñanentzako, jai eder-eder ura ikusi eta entzun genuntzako. Gogoratu egin euskun orain 40 urteta izaten ziran billarekin, eta dana antz berdiñekoa izateko, orduan bezela ugol-sukuakin emon genuen bazkariari asiera, Bestalde, Basarri, Estitxu, Gallastegi eta, Mokoroa eta...k emon euskuen erri maitasunez eta kristautasunez beteriko saio gogoangorria entzunaz gure arnasa bete-beterik itxi euskuen. Eta an zan jende izugarriatzaz zer esan? Nirea baiño luma obeagoa bear litzake ango zertzelada guztiak aipatzeko. Uste dut, emen, «AGUR» onen ale ontan, zerbait geiago jakingo duzutela eta orregaitik besteren eskuetan uzten dut. Baiño ezin egon naiz ango gizon eta emakume, zar eta gazte, jakintsu eta gitxiago giñanen artean nabaitu genuan poz eta atsegiña eta, batez-ere, orlako gazte sailla ikusita itxaropenez beterik geratu giñala esan gabe. Badauko oraindik gure Euskalerri maiteak eusgarri sendorik eta gaizkatu dugu berau etsaien atzamarretatik; ango eta emengoetatik. Ezin ixildu ezta, egun au eratu euskuen gizon eta emakumeak gogoratu barik, batezere ixillean lan eta lan egin dutenak. Eskarrikazko jaunak! eta urrengo urte arte Jaungoikoa lagun dala.

ERIOTZA

Bat-batez eta uste gabe il da Abarisketa eta Aranbarri'tar Pako. Bere sasoi-batean pelotari iaiua izana zan, erremontean, eta erri ontan bizi zan Arriaran'dar Miren Terese'kin ezkonduta. Au, Arriaran anaien arreba da eta ain sendi ezagunekua izanik asko maiteak dira danok. Samintasunean laguntzen dautsegu emazte, bere iru alabatxo eta beste sendi guztiai. Goian bego.

UDALAITZ

Irun

ARRAINTZALEAK

Pozez zoratzen dauzkagu. Izan ere Bidasoa errekara eun milla amorrai arraultz bota berriak bait dituzte. Danak ongi sortzen ba'dira, a ze nolako amorrai jateak egin bearreko geran. Amu eta sare prestatzen asi bearko ia laister.

Aurten, izokia oso ugari. Anjel Mari Telletxea irundar arraintzale purrukatuak BEDERATZI kilo eta zazpiren gramoko ale bat eskuratu du. Joxemari Irazoki'k zortzikua. Andrex Urtizbereak zortzi eta geixegokua.

Eta milla pestatikan gora kiloko... ba da zeozer!...

IRUNGO ATSEGIÑA

Deritzan Bazkunak «Urrezko Eztayak» ditu laister. Orregatik illabete osoko jaiak prestatzen ari zaizkigu. Datorren illabetearen 10'gnez asiko omen dira. Iñude, Artzai, Xorrotxgille et. ab. gaitzat arturik, euskal kutsua emateko asmotan dirala pozik oartu gera.

GURE ASTEA

Deitu oi diogu guk emen S. Jose asteari. Izan ere aste ortan izan oi ditugu beti garizumako itzaldiak euskera utsean.

Amaika aldiz gurean aste ontan ezagutu izan degun Aita Zubiaga, jesulaguna, etorri zaigu aurten ere. Bai arratsaldeko itzaldietara joan direnak, baita illunabarrekoetan izan geranak ere, oso poztu gaituala esan eta aitortu bearrean gera. Berriz ere etortzeko eskatuko genioke. Aiñ pozik egonak gera.

Garizumaldiko gayaz batera gaur-gaurko zenbait ere erabilli dizkigu, esate baterako, «Eliza berria ala berritua»?, «Bi Eliza ote»?, «Apaizak», «Aitortza», «Zaarrak eta gazteak», «Noraiño aldatu diteke Eliza eta nondik aurrera ez», «Vaticano Bigarrenak esan duana eta esan ez duana» eta abar. Bearreko ziran, emen beintzat, gai auek argitzea.

Euskera, berriz, txukun, garbi eta erreza Aita Zubiaga'rena, iñoren aurrean agertzeko lotsik ez duena.

Itz batean, gaurko irundarren neurri-neurriko itzaldiak izan ditugunak.

Ostiralez, Baxurko gure olerkari bikañaren itz-neurtuetan, eta Xenpelar'en doiñuz, «Gurutze Bide» zoragarria antolatu ziguna! Ordua aguro joan zitzaigun.

GALDEZKA

Dauzkagu nekazari bat baiño geiago ia noiz den Torrelavega'ko ganadu feria. Ona jakin detana: oraiñ arte illean beiñ edo bitan izan oi zen. Aurrerakoan, berriz, iru aldiz izango da: lendabiziko eta irugarren igandean eta irugarrena aste egunean, illabete bakoitzaren azkenosteguneau. Orrela guzien gogoak beteta geldituko dira, asko bait ziran aste egun eske zeudenak eta.

JOANAK

Eta betiko zaizkigu gure artetik Joxepa Garmendia Erauskin amonatxo zintzoa, Arturo Elortza Untzilla, Prantzisko Garayalde Alzugaray, Joxe Martiarena Epelde eta Eustakia Urtizberea Martiarena «Jesusen Mirabeetako» lekaimetxoa, gure erritarra, Zaragoza'n. G. B.

UDABERRIAN

Ote gauden galdetzen du batek. Izan ere auek dira egunak dauzkagunak. Bazterrak lorez jantziak... Ez al digu neguak zartatekorik emango!

XOXOA

Usansolo

GAIXOA

Beti osansuntsu ezagutu dogu, baiña gaixo zital batek oeturatu eragin dautso Usansolo'ko Agur zabaltzale dan Bengoetxea'tar Paskual'i.

Bere utsa ezaugarri izan da gure auzunetan, ta batez be euskera arloan gabiltzanen artean.

Gure otoitzik beroena Aitari, gure adiskide zintzoa, ainbat ariñen gugaz izan daigun.

LORA BARRIA

Lora barria, ta polita gaiñera, gure abeslari dan Begoña'gandik sortua.

Jaiotza beti pozgarri ba'da ludi onetan, gure abeslari taldearentzat zoragarri, lenengo adar barria dan ezkero.

Begoña izan zan ezkonbakoen artetik lenengo iges egin ebana ta oraindik danon gogoan dago nolako alaitasunegaz abestu genduan bere ezkontzako mezea, baita meza eder a amaitu ondoren zelako agur maitekorra eskeñi euskun berak.

Urduri izan bagiñan orduan, artegagoago une onetan, aurtxo onen bateoa antolatzen.

Une ori eltzen dan artean, zorionak Bego ta Juan Mari, ta ia ezitasun berezi bat, aurtxo onek ezagutzen dauan.

Zuen zintzotasuna ta Euskal zaletasuna esagutuaz alan izango dala uste dogu.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Basauri

EUSKERAZKO MEZEA

Epailla'n 19'gn. Joseba Deuna'ren egunean, euskerazko jaupa eder bat ospatu zan. Ariz' eko Edurne'ren txadonan, orain aldi andirik eztala il zan Perea'tar Joseba euskeltzale zintzoa izan zanaren gogo alde. Meza ori, aspaldiz Galdakano'ko txadonean aurkitzen dan Agirremalloa'tar Xabier'ek emon eban txinintza bikain da guzti.

Perea jauna, gaurko gazte askok ezeben ezagutuko bearbada, larogei urtedun zartxua zan-da, baiña, ezetariko zalantza barik esan daikegu, gizon-gizona zala bere egikera guztietan, eta Basaurin izan dan euskeltzalerik zintzoenatariko bat. Bere bizitza guztian Urtundoaga'ko auzotegian bizi izan zan, eta zelan ez! bera ezagutzen eben guztien maitegarria. Goyan Bego adizkide on eta aberkide jatorra.

EUSKO JAKINTZA SARIA

Iragarri barri dau Basauri'ko Udalak bigarren Eusko Jakintza saria. Guztiyok dakigun lez, igaro zan urtean ospatu zan onetariko lenengoa, ta Arantzazu'ko lekaide euskeltzale jator batek irabazi eban; nor izango ete da aurtengoa irabaziko dabena?, ea aurreko urtekoa lakoren bat, euskeltzale jator bat izaten dan bera. Edozelan be txalotu bearrean gagoz Basauri'ko Udala, artu eban erabagiagaitik; ordua be bazan «eusko» udalen batek euskal jakintzazko zerbait igitea-ta... Ia besteren batzuk be beste orrenbeste egiten ausartuten diran.

OSTIKOKETA

Jo ta ke diardue gure «Baskonia»ko ostikolariak, azkenengo jokatu eben jokaldian autsa atera eutsen «Jupiter» ekoai naita onein etxean edo landan izan jokatutako jokaldia.

Baskonia'k eztau ostikolari ospetsurik, danak edo geienak gazteak dira, ia iñork ezagutzen ez daituzanak, baiña, geien batzuek erriko semeak, eta bertokoak izanik bertoko «Baskonia» margoak maite dabezanak, eta maitasunagaitik jokatuten dabenak beti dau almen geiago txindi zalekeriz bakarrik jokatuten dabienak baiño. Aldi oneitan jokolari asko dagozan erara, jakiña! orretara urtetan dabe, edo ikusten dira, bearren diran aldietan, «porrot» egiten. Aurrera baskoniatarrak!

KOLDO

Galdakano

OSTIKOKETA

Ostikoketa zale batzuk, euren tartean AGUR'en irakurleren bat be bai, esan dauste ea zergaitik ez dotan zerbait idatziten erriko ostikolari kidea, ekipoa dala-ta, polito baten dabiltzazan ezkero aurtengo txapelketan. Ba, ez dot ezer idatzi aspaldian ez dotelako ostikoketarik ikusten, baiña, noiz edo noiz ikusten ba'dotaz, idatziko dot zerlako jokera edo eretxi emon dausten; esan neutsen.

Esan da egin; jakin nebanean bermeotarrak etorzala, an joan nintzan jokaldi ori ikustera, atsegin yatazalako bermeotarrak euren izakera berezian. Eneban jokaldi guztia ikusi beste zeregin sakonago bat bete bear nebalako, baiña, ikusi nebana ez zan ain zakarra. Polito jokatuten dabe gure mutillok, baiña, pizkat inderga edo nagi samar eretxi jatazan. Bermeotarrak kementsuago ikusi nituan, euren adizkide zarata bizkorrakaz pizkat bizkortuta edo; ori ta guzti be galdakanotarrak irabazteko era geiago izan eben baiña, bardindu egin eben. Ee ba mutillak! bizkor ibilli, ea gorako maillara igoten zareen.

MEZA BAT

Datorren illean Jorrallaren, 16*'gnean, euskerazko meza eder bat izango dogu Nengoetxe'ko txadontxuan, eberdateko amar ta erdietan, Aramendi'tar Joseba-Koldo'ren gogo alde.*

Aramendi galdakanotar jatorra, abertzale zintzoa zan ta, zelan ze! eusketzale purrukatua, naita aspaldiko urteatan Gipuzko'ko Legazpi ta Beasain aldean izan, Jainkoak Bere aldamenera eroan daben arte. Beraz biotz-biotzez agurtu daigun Erri-zale zintzoa.

BASA-JAUN

Zeanuri

ERABAGIA

Garizumako berbaldiak Epaillaren 13'gnetik 17'ra izan dira. Pozik aurkitzen gara zeanuritarrak gogo-jardunak egin doguzalako; bai benetakoak. Biotzez eskerrak Aita Santi karmeldarrari egun oneitan azaldu dauskuzalako makiña bat egi. Baita bere eskerrak txanburu jaunari, ekarri dauelako praille jator ori.

Gaur eguneko giroko berbaldiak egiten izan dauz; adi egoten izan gara, ba, entzuten. Jakin gura dozue ze erabagi ta asmo artu doguzan?

Bateti Euskaldun, besteti Fededun nai dogula jardun.

Bear bada, batek esango dau: erabagi gitxi artu doguzala. Baiña ez ete dira ba, guk, gaur, Eleizagaz eta Euskalerriagaz eta Gizarteagaz daukaguzan egin-bearrak, guztiak, fededun eta euskaldun izatean eta agertzean sartzen?

UDABARRIA

Esan lei neguko laiño illunak apur bat kendu ta goi-ortzea argiago agertzen yakula. Gorbei'ko edurrak be apur bat gitxituez doyaz. Egia esateko, baserrian bizi garanoi obeto asmetan yaku udaberria; txoritxoen soiñu gozoak goizetik alaituten gaitue, baita zugaitz lora usaintsuak or-emen agertzen yakuz: Udabarriaren Poza!

Baita artaldeak soloetan euren arran otsagaz, orain, naita guztiz gitxi ikusten izan. Zeragaitik izango dala uste dot: lan gogorra ta onura gitxi egotetik. Oraindik kukua ez da entzun; aurten bere bardiña abestuko ete-dau ba?

GORBEITARRA



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

Euskal Erriko Gizon ospetsuak

EUSKALDUN ABATA BARRI BAT

Aita Xabier Diharce aspalditik Euskal Erri guztian ezagun genduan: lekaide zintzoa, barru-barrutik euskalduna, euskal eta eleiz arazoetan jakintsua, izketa bigunduna, jarduera atseginduna. Itz batean, soiñez eta gogoz euskal endaren erakuspen bete-betea. Lapurdi'ko Belloc deritzan lekaidetxean urte luzeetan liturji-arazoetarako berak egin dituan ainbat euskerazko lanak ooregarri ta gorengoak izan dira. Goratzarre ederrak bere buru ta eskuetatik urten dabe-ta, Euskal-Erri guztiko eleizetan edergarri benetan izan dira.

Bere idazti ta aldizkarietako lan ugariak bai itz neurtuetan bai bestela, sakonak, bigunak eta euskal gogoen arnasgarri benetakoak. Beste idazti ta lan askoren artean oraintsu «Fededunen Arbasoa» deritzan eres-antzerki-opera bat ere egin barria dau. Abraham'en edestia adieraziaz. Esan geinke ziur Auñamendi'ren beste aldetik euskal-liturji ta kutsua geien itxartu dauana bera izan dala. Lekaide-etxeko auteskundeetan, lekaide guztiak ontzat arturik, Jainkoak orain saritu dau, mitradun abat gorengo maillara eramanaz. Uste dogu bere goi-goiko mailla orretatik euskal liturji ta jakintza geiago ta geiago landuko dituala ain beartsu diran Euskal Erri ta Euskal Eleizaren onerako.

Aita Xabier Diharce «Iratzeder» abat bezela onetsia edo bedeinkatua izan zan egunerako olerkitxu barruko au biotzez bialdu geuntson:

Belloc bai dala txoko polita;
zelai, zugazti, mendiak,
txori-abesti, errekatsuak,
lekaideen goratzarreak.

Deun Benito'ren etxe donean,
goi-maillaraiño eldu za,
Euskal Errian poz-alaitasun,
parre samur somatzen da.

Beneditarren sustrai zarrean,
kimu bigun zara sartu,
euskal abenda zugatz zarraren
kimu gurioi zara zu.

Zure izena izan bikaiña.
Izan ere da Xabier,
izen ordezko, idazlari lez,
artua dozu Iratzeder.

Deun Xabier'en biotz andia,
bero eta kizkaltzaille,
sartu bei, aita, zure bularran,
izan Kristo'ren ereinlle.

Zabaldu baita eusko elean,
bertsoetan ta bestela,
euskoen kultur, izate sakon,
iñoiz ilko-ez dan bezela.

Bizkai-aldetik zuganuntz, aita,
agur bat doa su-garraz.
Auñamendi'ko alderdi biak
beroz, zintzo, bat egiñaz.

Abeslari ta edeslariak
bai dogu otoi berorik:
gorde zaizala Andra Maria'k
aita, luzaro ernairik.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

KRISTOBAL BALENZIAGA

Getari'ko semeak geranez, ezin ixil egon Balenziaga'ren eriotzaz zerbait esan gabe. Zer esango degu? Jostunlari aundienetako bat zala? Edo ta, bere jakinduriz ornituta zebillen bat zala? Ez. Nik emen ez daukat asmorik goraltasun oiek idazteko. Ortan mundu guziko izparringiak idatzi dute. Nere zer esan ontan, beste gauz eta gertakizunen berri eman nai nuke.

Ez da egun asko oraindik, gure Kristobal Balenziaga, Getari, bere erri maite zunean, izan zala. Bai al dakizu zertara joan zan? Joan zan, Madrid'en il berri zan Markes de Casa Torres'en elizkizunetara. Dakigunez, erriko elizak diru plata aundia zeukan, alegia, negurako kalefazioa jartzeko. Berreun milla peseta eman zizkion bertako Erretoreari.

Olako eskupekoak ugari egin zitun gure Kristobal izanak. Urteak ordea bizkarrean ta bere 77 urterekin lanean jarraitzeko gogo gutxi zeukan. Bere lan uztea, geien bat oraingo jantzkera motxagatik izan zan. Kristobal zanak ez zun ongi ikusten MODA ori. Kristobal'en jazkerak, besterikakoak ziranez, emakume baten apaintasuna bear dan bezela jazteko, ta ez gona motzak ipurdiraiño agertzeko orregatik utzi zuan albisteak ginduzen.

Balenziaga'k, ez zun dalako erriko seme Markes de Casa Torres'tarren antzik. Nirz gazte denporan an ikusten nitun udarako igandetan meza nagusia entsuten. Baiñon ez dira erriakin bat egin.

Casa Torres oien aurreko, aitona edo... Berroeta Aldamar ez nun ezagutu. Ni jaio baiñon lenago il zalako. Entzuten gendun, alegia, Berroeta Aldamar gizon aundi ta erri maitale zala. Batez ere, euskaldun maitea. Diputadu zanez, kortietan argi ta garbi esan oi zuan, beste diputadueri erantzunaz: «Nik lenengo izkuntza ikasi ta maitatu detana EUSKERA da, jaioterrian nere amak erakutsia. Bitarteko izkuntza guziak onak dira, baiño, neretzat onena nerea da. EUSKERA».

Urteak dira il zala bera! Elizpean dago bere illobia. Getari'n goitik bera kaialdera zoazenean, elizpetik igaro bear dezu, ta an dago. Guziak egiten dute ikustaldia ta baita ere txanponak bota, Kapilla ortan ezer palta izan ez dedin, nola argia pizteko edo ta mezak ateratzeko. Erriak maite zuanez, ez du azten.

Kristobal Balenziaga izana, makiña jantzi egiña da, orko Markesak, Prinzezak, Artistak eta abar. Paris'en bera zan lenen, besteak bere «kopiaketak» egiñik.

Ona zanez, etzan agertzen jendeartean, umildadea bai zun neurritzat! Ortako bere jantziak ziran agertzen ziranak.

Bere aita arraintzalea zanez, bera ere ia itxasora joan zan. Baiña, zortzi urterako ama jostunaren antza izaki, lenengo egin zun jantzia txakur txiki batentzat izan zan. Aita ta amarentzat, arrigarria izan zan, itxasora joan bearrean, jostunketan astea lanean. Askotan, ez da aita amaren gogorik betetzen beren semeak onelako opizioa edo alakoa erakuazitzeko. Ortako kristau guziok geren griñak nabaitzen ditugu. Arraintzale izateko, nere ustez, lanbide neketsua dala deritzait. Aita ama guziak, arraintzale ba'dira, naiago lukee beren semeak legorreko opizioak ikastea, ta ez itxasora joan ta arriskoan bizi. Gure Balenziaga aundiak ori egin zun eta, alajaiña, JOSTUN ikasi, ta nolakoa bera...!

Diotenez Getari'k iru gizon aundi ditu: ELKANO, BERROETA ALDAMAR eta KRISTOBAL BALANZIAGA». Getariar ospetsuak. Erri maitale izan ziranak, naiz ta gure ELKANO erritik urrin ebilli, beste biak berdin; bat munduari bira emanaz, Berroeta Aldamar Madrid aldean eta Balenziaga Paris'en.

Kristobal'en naia bete da. Getari'n nai zun bere gorputsa lurperatzea. Ortako zeukan illobi eder ta apaiña, ta erri guziak ederki erantzun zion berari zion maitasunean. Pesta bat balitz bezela erria apaindu zan. Eldu ziran alde guzitatik bere ordu arteko lagunak eta eraman kanpusantura.

Nik egun ortan ELGETA'ra joan bearra nun. «AGUR»-ko idazlarien batasuna gendualako. Ala ere, zazpirak inguruan Getari'ra eldu giñan, ta ikusi bertan bildu ziran jendetzak.

Bai, Getarik zitun iru gizon aundi oiek joan ziran. Erriko Alkate Besterretxea jaunari eskari bat egin nioke. Ez da zailla betetzen. Eskari ori au da: KALE BATI JARTZEKO Kristobal Balenziaga'ren izena. Egun ori izan deiela aurten, 450 urtebetetzeko Elkanoren eguneko pestetan. Olaxen goralduko degu berari genion maitasuna.

Kristobal Balenziaga. Goyan Bego!

E. OZKIN

«ORIXE» ZANAREN IRITZIZ

«Orixe» zanari, guda ondoren Amerika aldean urte batzuk igarota, berriro oneratu zanean, alkartasunezko bazkari bat eskiñi genion, Asteasu'n Gipuzkoa'ko euskal-idazleak.

Gure alkarte gogoangarri artan, aukera izan gendun, ain euskaltzain jakintsuari galdera batzuk egiteko, Euskera'ren Batasuna'ri Buruz; ta ona emen, idazle ospetsu ark nola erantzun zien guk ordun egindako galdera jakingarri aieri:

—«Orixe», Euskera garbia ala mordoilloa bear degu erabilli gure idazlanetan?

—Garbi amorratuaren eta bien erdikoa!

—Ongi da. Eta Euskera'ren Batasuna eta Euskalkiak, nola ikusten dituzu?



Bereziartua, «Zeleta» eta «Orixe», Asteasu'ko alkartze-egunean.

—Ez naiz egundo izan batasunaren aldeko bero-beroa, batzuk aditzen duten eran.

—Euskera'ren Batasun-eredu bat, zure ustez, nolaz tajutua bear luke izan?

—Nere iritziz, Batasun-eredu bat, auxe litzake: bakoitzak besteren euskalkiak ikasi ditzala, irakurtzeko lain, beintzat, eta orra or BATASUNA.

—Eta erri-ezikasiarentzat zer?

—Erri-ezikasiari, ez dio ajolik, gizona! Bere bidetik joango da, eta erri-ikasixamarra, laister jabetuko da, besteren euskalkiz.

—Nik ere, alaxe uste, «Orixe».

—Bai, ba; eta ala, gure denboran, ikasixamarrak gogoz eta poliki irakurtzen ziztuzten «Herria», «Argia», «Ekin», «Jaungoiko-Zale», «Zeruko Argia», eta... baita «Euzkerea» ere.

—Oraiñaldian ere berdin gerta dedin, zer uste dezu bear litzakela egin?

—Auxe: Bizkaia'k batu dezala berea, guk aditzeko eran; au da: gure euskalkietatik geiegi urrundu gabetanik. Orobat, besteok...

—Baiña, baiña...

—Zaude pixkabat, «Zeleta». Entzun: Batasunik, ez bedi sortu, LITERATURAN.

—Zergaitik diozu ori?

—Kalte aundia litzakelako!

—Zer dala-ta?

—Bakoitzak berezko jasa, joidura, txairotasuna galduko lukialako. Esan dedan batasun ori, Jakingai edo Jakinkizunetaroko bedi!

—Euskera'ren batasun zaleak, izan genitun ba, «Orixe», lenago ere...

—Bai, jauna; izan genitun... Euskalki bat aukeratu bear zala-ta, lengo Euskaltzaindia'n laphurdi zaleak giñuzen Julio Urkixo eta neroni ere... Baiñan, Azkue zanak menderatu giñuzen, bere «Gipuzkera Osotuarekin».

—Egia doizu, «Orixe»; ala gertatu zan ordun... Zer gerta liteke orain?

—Zer esango dizut? Gazte batzuk or ari zaizkigu esaten; laphurdi'koa autatu bear litzakela, yayoagoa dala-ta...

—Eta zer?

—Ori bera Larramendi'k esan zuan, bere egunetan. Gaur, ez, arren, olakorik!

—Ez e?

—Ez!

Arazo garrantzitsu onetzaz gaiñera, beste euskal-gai jakingarri askotaz mintzatu zitzaigun, bazkariegun artan, gure «Orixe» azkarra; bere iritzi, esanai eta idazlan ugarien berri, zeatz jakin nai-duanak, irakur beza 18 euskel-idazlek bat-banaka osoturik, eta bere argazki ta guzi argitara emanik degun «Orixe-Omenaldi» deritzon 213 orrialde ditun euskal-liburu mardul, eder, eta benetan irakurgarria ta jakingarria.

Asteasu'ko alkartze artan aurkitu giñan euskel-idazleak, Euskeraz «h» gabe idazten gendunak giñan, denak, eta bat izan ezik, gaur oraindik ere ala jarraitzen degunak. «ORIXE» zanaren irakatsiei arduraz eta zintzo jarraituaz, Euskera Idatziak guztiz lokatsatu gabe iraun dezan.

ZELETA

BURUARI BURUZ

Burua giza soiñaren atalik ederrena da bai, sorbalda ganean daroagun zati, alderdirik bereziena. Buruan doguz gorputzeko lantegi aberatsenak eta, bearrezkoenak. Burua da gure gorputz osoaren buruzagi eta errege, gure nagosi iaun, eta iabe. Buruan doguz begi eta belarriak; buruan, sudurra, agoa, mingaña eta, buruaren goiko aldean burumuiña edo, garaunak. Buruan bost zentzumen doguz: ikusmena, entzumena, usaimena, gozamena eta ikumena. Ikumena buru osoan eta, soin azal guztian zabaldurik daurkigu.

Beraz, ez da arritzekoa «buru» itzak, ainbeste adigai, oldozgai, ta, berezitasun; ainbeste elebide izatea euskera zarraren ago-zapai oparotsu ta ederrean. «Erriko buru», «Etxeko buru», «Iturburu», «Odei-buru», «Gudal-buru» ta, abar... aginte, iakite, goitasun ta nagusitasun barri damosku.

Baiña, «buru» itz-ibilte ugari onek txirotasuna ala, aberastasuna azaltzen dausku? Nik esango neuxe aintziñatasunaren ikurra dala, gure mintzaira, berbeta apal ta maitagarrian ain zuztartsu, bizi ta sakon, ain burutsu, egoki daurkigun altxor, aberastasun ugariko zentzunbide bikain, itz bakan, adigarri au...

Buruz bizi bear da, zentzunez: buruz ikasi, buruz lan egin, buruz ibilli eta, arazo guztietan, buruz iokatu. Burua bear da bizitzan zear, egunetoko igarotzean, gauzak zuzendu aztertu, gauzak neurri egokiz, elburu ongarri, etorritsu batera eroan ta, alik artezen bideratzeko.

Bai, burua diñonak, argia, iakituria, zentzuna, gomuta, nortasuna ta abar, edozenbat asmo, gogai, edozenbat bizi-gai, adierazteko bidea, egokitasuna diño. Aztertu daigun gogoz, zori oneko «buru» au, ta, nun-nai, or-emen aurkituko doguz ugari ta mardul euskal lorategiko landa zabalean.

Gure: burutasun, burutañizo, bururakizun, burutapen, gure burubide, bururatze, burukide, buruneurtze, buru egosteak eta abar, bizitzako bideberan dei dagiskue alde guztietatik, batzuetan, alako gozotasun atsegin edo buruko min aspergarri bat sortuaziz... Goazen bai, entzumen ta, begi argiz, bidez aurrera erririkerri, baserririk baserri, euskalmintzozko landa, zelai, alorrez... ta, beingo batean, ene irakurle, zu eta ni, or gure txoko, bazterretan, adi-lan suspergarri aberats ta eder oni loturik aurkituko gara, erri-maitasunez buruz-buru, egunoroko iardunaldi ixil, bioztietan, erriak darabiltzan esakera ta, esakunak geugandu ta bururatuz... ta, ikusgarrizko ezaupide, alkargune pozgarri, atsegin batean barrendu, murgilduko gara bakoitzaren ikuste ta ikaste, bakoitzaren alegin ta burubidez.

Oso zabalduak dira: «Zenbat buru ainbat aburu», Au da: (bakoitzak bere eretxia) «Buru baiño biotz geiago», «Bururik ez daukanak txapel bearrik ez», «Bakoitzak lanari buru ta belarri», «Bururik ez ta txapela nai», «Txapelik aundienak ez dau buru utsik betetzen», «Txapel baten barruan ezin buru bi sartu», «Ekin gogoz buru ta biotz», «Burua aize zentzuna etorri arte», «Txapela buruan ta ibilli munduan» ta, abar.

Aipagarriak baita beste auek: «Orrek lengo lepotik burua», «Orrek ez bururik ez ankarik», «Bururik ez darabillenak ankak erabilli bear», «Jakitunak begiak buruan ta, eroak, oiñetan», «Buru gabea beti leen lerroan, buruduna beti azkenean» ta, onako bitxi eder au: «Gizon zara, buruhu zara». Beste esakera batzuk erriaren zentzuna ta iakituria goralduz: «Buruz-buru, gogoa azaldun», «Zer ete da bururik eza!» «Ori burutik egiña dago», «Orrek burua atarako dau bai», «Ez dot iñoiz olakorik bururatu», «Orrek burutik eragingo dauku», «Nork orreri olakorik buruan sartu», «Noren buruz ete dabil», «Ez neuke orren buruan egon gure», «Zer egosten ete da orren buruan», «Zeiñen buru da ori?», «Orrek ba eta dau bururik?», «Bere buruaren iabe ete da?», «Bere burua saldu leuke orrek», «Buru utsa da ori», «Orrek ez dauka buruan azkurerik», ta abar. Ta, gauzak: buruz, egin, ibilli, iokatu... Ta, izan: buru argiko, aundiko gizona; ta, buru izan, buru egin, buru ibilli; ta, burua iaso, burua makurtu, burua artu, burua eraso, gangartu, oillartu, kakaztu, urkatu, nekatu, ta, burua erakutsi, agertu, argitu, tentelatu, makaldu, aldatu, ezeztu, bat egin, ta, burua tentel egin, burua gaixo egin, ta, buru ariña, buru gogorra, ausarta, makala izan... Ta, zenbatzu geiago! Esate baterako: Au, arto burutza, gari burutza ederra! Amaitzeko Udabarrian sartu garan ezkero: «Txikia nintzan, aundia nintzan; Maitzean burura nintzan».

MUNIATEGI'TAR SABIN

AGUR

III URTEA
35 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - JORRAILLA - 22

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

EZBARDIÑAK?

Gizon guztiok bardiñak garala sarri entzun dogu. Baiña egia ete da?

Gizadira begiratzea naikoa da berezko ezbardintasun nabarmenak ikusteko: batzuk gorputzez aundiagoak, beste batzuk txikiagoak gara; batzuk osauntsuak eta beste batzuk gaizokiak; batzuk adimenez argiak eta beste batzuk illunak; eta, norberagandik urten ezkero, batzuk aberatsak eta besteak txiroak... Non dago ba, bardintasun ori?

Eukietan bardintasunik ez ba'dago be, eskubideetan beintzat, bardintasuna egin bearrekoa da. Ondo dakigu au be gizartean beteten ez dala, baiña bai bete bearrekoa.

* * *

Gaur gizadian nabarmenen agertzen jakun ezbardintasun bat endakeria da. Toki batzuetan baltzak eskubide guztiak eta zuriak bat bere ez, beste toki batzuetan zuriak dana ta baltzak ezer ez. Eta au, bai ikastoletan, bai jolas-tokietan, bai ardandegietan...

Or bai agertzen dala argi gizonen gaiztakeria! Azalaren margoa dala ta, barruko norberekeria agertzen da or.

Eta ez ete dauka endeak azelako baliorik? Bai. Eta endearentzat kaltegarri dan gauzarik ezer ezin geinke egin. Baiña kaltegarri ez diran gauzetan... Eta eskubideetatik, geienetan ez dator kalterik. Gure Errian be izan leiteke endakeriaren arriskuren bat, baiña gizona ta Erria begiratu dagiguzan. Ba dira euskotarrak izan arren Erriaren kaltegarri diranak, baita berez euskotar ez diran erri-zale zintzoak be.

* * *

Beste ezbardintasun iturri ugari bat ondasuna, dirua, izaten da.

Edo gurasoakandik artu dabelako, edo lanerako trebeagoak izan diralako, batzuk aberats agertzen jakuz, beste batzuk oso txiro; batzuk zapaltzaille eta beste batzuk zapaldu...

Bidezkoa ete da ori? Ez. Munduko ondasunak banakeran iñor ezin leiteke aberastu bere anaia beartsu dan artean. Munduko ondasunak, lenengo ta bein, guztiak bear dabena izan dagien dira.

Ez iñor aberastu aurrekoaren edo menpekoaren izerdia bide dala. Gizon batek bestea menperatzea ta zapaltzea ez da bidezko gauzea, «explotaziñoa» ez dago giza-eskubideen bidean. Guztiok lan egin eta guztiok neurriz, bizi, guztientzan zer jana izan daiten... Noz elduko ete da zuzentasun ori?

* * *

Baiña ez dagigun aiztu ondasunen ituri ta berez ondasuna dan jakintzea. Gizon guztiok daukagu jakintza-mailla batera eltzeko eskubidea, eta onetan be ezbardintasun ikaragarri bat agertzen jaku gizartean. Zenbat gizon abedetu barik! Eta beste asko jakintza-bideetan gorengo mailletara elduta!

Eta zenbat euskaldun euskal-jakintzarako bideetan abedetu barik! Geienak! Au bai benetan tamalgarria! Eta oindiño geienak orretarako arduratu be ez!

Nortzuk eltzen dira gorengo mailletako irakastetxeetara? Eta aretara altzen diranak zenbatek amaitzen dabez euren ikasketak?


* * *

Agintaritzeari buruz ezbardintasuna agertzen jaku. Batzuk beti agintari, eurak edo euren artekoak, beste batzuk beti manpean.

Erri-agintaritzea, demokrazia, zarra da euskaldunen artean; baiña J. J. Rousseau'ren alditik batez be, erriratu da zaletasun au munduan. Eta gure barruak eskatzen dauan gauzea da. Baiña noiz etorriko eta jaku onetan be eskubideen bardintasuna?

Eta ez bakarrik erri-agintaritzean, baita Eleiz-agintaritzean be bide oneik artzea bearrezkoa da. Ba dira aldakuntzak, baiña elburua oindiño urrin dago. Ba dauka gure gizadiak aurrera egin gura ba'dau, nondik ibilli!

AGUR



Zu be, zuri aundiki ori, bardiña ete zaitut nerekin?

ARAZOAK

Azpalditik etorkidan oraingo euskal-arazo au soiñu gogorretan neure belarrietara ta baita samiñez biotz barnera. Nundik edo zertatik sortu da burukomin au euskaldunen artean?

Gizonak edonun, edonoz ta edozelan ez dau itz egin bear. Ori ez da zillegi. Euskaldunak eta euskal-erriak euren berarizko bizitzea euken, erri onen jakintzaz eta izkuntzaz landurikoa. Erri bakoitzak dauka bere bizia ta guk geurea geunkan. Bizi au etzan sortu eun urtean. Millak urteak ditu, zorionez, gure erri onek bere eratukera arrigarrizkoan.

Euskal-erriak seme alaba beargin, zintzo ta jakitun, era askotara, izan ditu. Euskaldunek, gizon legez, euren uts eta konpondu bearrak izan bear zituen ta izan zituen. Arazo onek konpontzen, alik era onenean, saiatu ziran gizontasunez. Olan ba, euskalduna zentzundun bezela ta era onean onartua izan zan aldi ontara artean.

Orain be, gizon garanez, gure artean arazoak agertu bear eben eta agertu dira. Jazoeren zio ta ondorenak alkarren kideko izan bear dabe pilosopi edo jakintza onean. Euskaldunen arteko ezpai ontan, ondoren gogorrak agertu dira geure jokabideak, agirian, jarten dauskunez. Gure erriaren gauzarik sakon, egizko ta bearrezkoenak, oraintxe, aidetu dira.

Astinketa izugarri onek askori ikutu dausku, ta oraindik be, anabasa maltzur baten barruan gagozela dirudi. Bizitzan aurrerantz goazenok, malmutzkeri asko ikusi dogu. Ta jokabide azeritar oeik, beti, bakoitzak al eban eran ederkeriaren itxuraz konponduta agertzen ziran. Guztia zan, norbere aldetik, esan eziñiko norberekeria, ta azaletik, besteak atzipetuta itzi nai izatea.

Gure aldiko euskal arazo onen sustraia, ondo, maltzurkeriz estalduta egon bear dau. Lengo jokaerak eta uskurtz-erlejiñoa, gogotsu, eztenkadatuak izan dira. Beti, onaren, zuzentasunaren, aurrerapidearen izenean. Gaurkotasuna, itz polita noski. Ori aurrean, jarri, buru barri-gaztetsuak errezago atzipetuteko, lengoak linboan bizi izan ba'litzaz bezela ezer egin barik.

Mendi-garai batetik euskal-gizadira begiratu dagigun. Atzokoa, gaurkoa ta biarko itxaropena, andik, ikusiko doguz. Guk atzoko euskaldunei ezer ez direla izan, lotsa guztia galduta, esaten ba'dautsegu, azelako egurrak jausi bear daben gaurkoen gain, ondoren etorriko diran baten-batzuengandik! Au da gaurko itz eta irudi politak irakatsi nai dauskuen alkartasuna, esku emotea!

Ta onen sustar sakona, azeri-azeri, estalduta dagona nun dago? Jaungoikorik ez dala bear esaten da. Gure izkuntza Jaungoikoaren aurrean baltzitu da. Ta euskerak, Sara'ko Axular, abade jaunak egiten eban erakoak izan bear dabela irakasten dabilkiguz. Zer egingo dau baiña Sara'ko abadeak euskeraz eta Jaungoiko barik?

Sara'ko abadea artu ta Jaungoikoa kendurik nora goaz! Irudi politen bat ete Axular'en kontu au...

SOLOZABAL'TAR PAULIN

GOTZON GARATE'RI, ANAIKOR

Zorioneko edo zoritxarreko H-korapilloan, sartuta gagoz aspaldian. Ondo ezagutzen doguz ikur orren esan-naia ta iruntsi erazoteko egiten diran alegiñak. Orrez gaiñera, euskera erderatuan, edo, orain esaten dan lez, euskera «mantxatuan» idatzita dagozan idaztiak ez doguz irakurten, eta gitxiago erosten. Noizik bein, aldizkarietako lan batzuk irakurtzen ditugu, baiña liburuak, ezin! Amargarren orrira eldu baiño len aspertzen naiz, eta kito. Ba-liteke neure ezjakintzaren erruz izatea, baiña olantxe da.

H'ak alde batera itzita, egillearen euskera jatorra ezaguturik, Gotzon Garate'ren idazti biak lortu ditut, ez baiña irakurtzen asi. Aita Garate, gizonik zintzoenetarikotzat daukat, gure artu-emon laburreri esker, eta gure bitarteko adiskide askoren iritziz. Beraz, giza-lege guztiak gorderik, berak Zeruko-Argia'n esan dabenari erantzun bear dautsot.

Bai, Gotzon, Beste edozeiñek esandakoak ba'litzakez, ez neukioe jaramonik egingo, baiña politika arloan zuk beste dakianaren itzak (ta ez artu igurtzikeriz) garrantzi aundikoak izaten dira, naita nai ez. Ez natorkizu zure idaztiko muiñari buruz, itzkuntzatzaz esan dozunarenaz baiño. Diñozun bezela, egitan penagarria da euskeraren gora-beeretan darabilguzan eztabaidak argitaratu bearra. Zeuk autortzen dozu: «Marxen marxismoa» euskera *errikoiagoan* egin zendula... urrengoa «batuagoan» ain zuzen be. Egillea izatearen eskubideak dituzu nai dozun bezela idazteko, baiña gerotxoago diñozu: «Goizueta Herrero borda baserri jator eta maitean egiten ditut egonaldiak. Gogozkoa dut hango euskera; baiña Euskaltzaindiak esaten duena betetzea izan da nere lema. Horri nago begira eta bardin egin behar dogula euskaldun guztiok uste dut. Disziplina eta Demokrazia: ona nere gogozko bi leloak».

Ez dozu gitxi esan, Gotzon adiskide! Bene-benetan itz politak: «demokrazia ta disziplina», baiña ez itz nastuagorik erderazko iztegian!

Nik baiño obeto dakizuz demokraziaren izenean egin diran eta egiten diran nabarmenkeriak. Nun nai ezagutu daikezuz «demokrazia» izeneko gogorkeridun agintaritzak... eta dan-danak «disziplina» ta legea gordetzea eskatzen dabe, naizta sarritan, lege ori gordetzeko zapalketa aundienak egin.

Egizko demokraziak, bai jaurlaritzarako baita edozein alkarterako arduradunak egizko demokrazia orren bidez izendatzea eskatuko leuke; arduradunen artean botodunak, edo ejekutiboak jakintsuen artean, arlo bakoitzerako geien balio daben gizonen artean aukeratu bear litzakez. Beste era batera jokatu ezkero, ez da egizko demokraziarik: «Gu, onenak gara, ta guk agindu bear dogu» diñoenak ez dira demokratak; margo guztietako gorgokerizaleak baiño.

Sarri, demokraziaren itxurea emoteko, botoetara be eroaten dakie gobernu eta alkarte batzuk... baiña, zelako auteskundeak? Aurretik konpondutakoak bildurraren indarrez, naiz maltzurkeriz edo «chantajez». Ez dozu olako agintaritzarik ezagutu? Sorkaldean eta sartaldean eta bitartean gura-aiña dozuz.

Arazo guzti oneik ekarri egizuz izkuntza arlora ta... Euskaltzaindia aipatzen dozu, lemadun bezela; nik, baiña, Euzlaktzaindia ta euskaltzaiñak banantzen ditut. Oraintzu, euskaltzain dan aiton ospetsu batek iñostan: «Nere iritziz, Euskaltzaindiak, bere iritziak emon ondoren «neutral geratu bear leuke idazkera eztabaidan; erriaren erantzunaren zain, neutral». Alkartea bera neutral izatea gauza bat da, ta beste bat euskaltzaiñak eurka izatea. Guk ez dogu «neutralitate» ori iñon ikusten, beraz, ezin dogu ezertariko «disziplinarik» onartu, ez dira ezta, oraiñarteko erabakiak (Azkue ta Arana'ren aldikoak) gaurko euskaltzain batzuen artean onartuak izan-eta. Diziplinarik bakoak ezin izan disziplinea eskatzeko eskubiderik.

Ta demokraziak eskatzen daben lenengo baldintza auxe da: Gugaz bat ez dator orren iritzia aintzakotzat artzea, errespetatzea. Izan ete da olakorik? Gure aldizkari onen aurka egiten diran «chantajeak» ez dira gizalezkoak, baiña gu, lasai! Gure *txalupea* iruntsiko ba'leu ekaitz orrek, beste batzuk be gureagaz batera itoko litzakez.

Eta besterik ez. Agur, Gotzon, jarrai zuk zuzena deritxozun bidetik; gu, guretik joango gara-ta. Demokraziagaz; baiña ez gogorkerizko disziplinadun bidetik.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Idazti barriztugarriak

GAUZEN IKASKIZUNAK

Egillea: Lertxundi ta Baztarrika'tar Jon Imanol.

Argitaldua: 1925'*gnean.* 1921'*gnean Euskaltzaindiak. Durango'ko lenbiziko batzaldian saritua.*

Sail onetan, barriz argitarutu bear litzakezan idaztiak agertuko ditugu. Gazte ta ikastoletarako gai diran ainbat idazti egiñak daukaguz, ederrak gaiñera. Ara emen gaurko onen asiera ta amaiera:

«Donostiko Ikastetxe ospetsu batean asterketak zirala ta, mutil sail-polit bat bildu zan, eta beren guraso ta esagunen aurrean irakaslearen galdera ugariai zintzo ta egoki erantzunez, bana banaka ta taldietan, mutil bizkor ayek beren azkartasun eta ikastaroan ondo lan egiñez, asko ikasi zutela adierazi zuten.

Ta jakiña! Ikasleak pozik, irakaslea geyago, gurasoak arrosko, ama batzuek malko gosoak zerizkiela irriparrez eta guztiak atsegin zeudela, sari ederrak banakatu ondoren, etxeetara juteko gertu ziran batzarrekoak... bañan eskertsuak ziranez, aldendu baño lenago irakaslearenganatu, ta guraso geyenak «bejondeizula!»—'ka, beren mutillai asko erakutsi zielako irakasleari esker ugariak eman zizkioten.

Ontan irakaslariak, bere asmoak agertzeko gaia zetorkiola igarririk, gurasoei esan zien:

—Andre agurgarri ta Jaun altsuak, zuen semeak asko ikasi dutelakoan pozik zaudete noski; ni ere bai: mutil oyek lezazteken berri guztiak badakizkite; bañan begiz ikusten danak geiago irauten bai-du mutillen oroimenetan eta edonun zerbait ikusteak elieke gaitzik egingo... Ondo deritzazute?

—Bai! bañan... (zioten guraosak) mutillak ezin dira bakarrik ibilli, ta gu, geren bearrez ezin giñezke iñora juan.

—Bai, ba dakit ori; ala ere, bateonbatek, mutil oyek, beren zaindari dala, eraman al-ba'litu eta bidez, ikusten dutena adiraziko balie...

—Ori bera, orisen; ta bateonbat ori zeorrek izan nai ba'zendu...»

(Ta ara nun sortu zan ibilladi ori, ta idazti onetan 121 orrialdetan azaltzen dira Euskalerriko Itxasketak, Lugintza, Olkintza, Sal-erosketak ta abar. Gero azken orrian bukatzen):

«Mutillen poza, beren gurasoak Amara'ko geltokian ikusi zitustenean! Ango laztan maitetsu ta malko gosoak!

Ta arrigarriena, Gazteiz'ko Endore Jauna ta Lugintz-Ikastetxeko buru zegon gizon jakintsua, mutillen guraso tartean arkitzea!

Irakasle Jaunari, txandaka guraso ta mutillak biotzez eskerrak eman zizkioten.

Ontan, Patxiri bere gurasoakin batean Endore ta gizon jakintsuak deitu zioten eta maitetsu besarkatu ondoren, jaun altsu batengana eraman zuten eta berari mutilla aurkeztuaz, Endoreak esan zion: «Ona, emen, Jauna, zure semetxoa eriotzetik gaizkatu zun Patxi kutuna!»

Au entzutean, Jaun arrek mutilla txit maitetsu besarkatu zun eta gero malkotsu ta zerurontz begira zion: «Jaungoiko altsuak zu ta zure guraso doaitsuak onetsi zaitzatela».

Geltokitik irtetekoan, Jaun altsuak bere semetxoa ta Patxi besarkatuak zeuzkala, guztiai esan zien: «Jaun da mutil maiteak, nere Patxi ta nere semearen izenean, biarko Pannier-Fleuri'ko ostatuan, bazkari bat eskeintzen dizuet: arren da arren! guztiok etorri zaitezte...»

Ezkerrean, idaztiaren orri bat.

UBITZA'K batua

peña artu zagun edo ni-gorizko ari estaldu dezagun ñizko ari ori, obe; indara biziari.




(A): A ori burbatez biribil-(B): burni-gozenbat eta me ta luzegoa izan, asko aunditzen bai-dio burni

Gurpil bat G. B-bezelako peñez inguratu dezagun, baten aria, aldamenekoarenari erantsi edo lotuaz; guztia burni bizi bat egiten da.



Lengo G gurpila bezela ibai baten ur bidez igitzen ba-degu, D, ere igituko da ta indar aundiko burni bizi egiten da.

D tutuari beste tutu uts bat erasten badiogu L berak ere peñ burni goñi ariz bilduak ditula, L ere burni bizi dago; ta geldirik añen iximist indara dauka ta D-tik ari bat (m) eta L-tik beste bat (n) atereaz, noranai emateko indara badegu.



Naiz berfan naiz ufuti beste δύναμος edo indarkin berdin bat jañi besterik ez degu: m ta n ari bidez, L biziazten bada G igitzen eta onen ardatz eta gurpil bidez, beste gurpil asko, len

POZAK ETA KEZKAK

Aipamenak.—Barriro be, gure ziria eztitsua. Lengoan jakin dogu, Lizeo Santo Tomas'eko irakasle taldeak artu dauan erabakian: Ikasleeri, amairu urterarte, gipuzkoera irakastea. Ortografia gorabera, ori da zentzunez jokatzea, umeen psikoliarentzat eta euskerearentzat ongarria. Bestelakorik ikusten dogu ikastola batzuetan, ez dogu ulertzen baiña zein asmoz dan.

* * *

Aingeru Irigaray, Zeruko Argia'n ikusten dogunez, alfabetatze «kanpainako» gaiekin kezkatuta dago... ez da arritzekoa. Oraintsu, Bizkai'ko erri baten «kanpaina» ori izan da. Andik denpora gitxira, eratzaille bardiñak aukeraturik, itzlari bi etorri dira. Ez eben, ez, ez batak ez besteak euskereagaz zer ikusirik... itxasoko «arrain» artekoak, euskal ur gozozko ibaietan igerian... Eta euskalzaleak «internazional» eresiakin lo zorroan...

* * *

Atzeratuak? Aurreratuak? Ona emen izengoiti bi, geien erabiltzen diranetakoak. AGUR'ekoak, zer? Mongolikoak bear bada, baiña orain arte beintzat euskaldunak. Or zear ikusten doguzan pizti antzeko aurreratuak euskal zaletasuna euren landarak ernetzeko zimaurtzat darabille: seigarren, zazpigarren eta ez dakit zenbatgarrenekoak: arrain gorrien morroiak... eta Ikastetxeetako irakasle errizaleak? Lo!

* * *

Erdi bidea... ona emen asmo eder bat; baiña ba ete da erdi biderik? Idazkerari buruz gabiltza, ta gure ustez, korrektoreak du giltza; arpidedunak eta irakurleak geitzeko, emendikoak **bear, naizta gogoz, edo pilloa egin ondoren, «andikoekin» geratu. Ikusi daikezuenez, izenez santua dan intelektual batek du: itza.**

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EGIN aditz laguntzaille

EGIN aditz itzak iru zeregin ditu:

1) Beste edozein aditzek lez egiteren bat azaldu.

«Etxea erosi det», «Etxea saldu det», «Etxea egin det».

2) Izenari isatsiaz aditz bikoitza sortu.

«Parre-egin», «Negar-egin», «Lo-egin».

3) Esaldi guztietan atal edo itzen batek besteak baiño garrantzi geiago izaten dau; itz edo atal ori aditzaren ondoan aurre aldetik ipinten da, ta itaungai edo inkiridu izena emoten jako. Aditza bera be esaldiko garrantzitsuen edo itaungaia izan liteke ta orduan bere izakera ori agertzeko EGIN itza ondoren ipinten jako.

—Nun daukazu arako beribil eder a?

—Saldu egin neban.

Iñoiz, esaldiko atalik garrantzitsuena aditza izanaz gaiñera aditz ori EGIN bera bada, bi bidar esaten da.

«Amak aparirik ez egiteko esan daust, etortean berak egingo dabela-ta, baiña ezer egiteko barik nengoan da EGIN EGIN (sic) dot».

—Lan asko egiten dozu.

—EGIN EGIN bear! (tener que hacer).

«Barre-egin», «Negar-egin» eta olakoai, naita inkiriduak izan ez jake bigarren EGIN ipinten.

—Arratsaldean nun izan zara?

—Iñun bez; lo EGIN dot.

Nik oraintsu arte kontu onetan ezpai txikienik be ez neukan; ta oraingo idazle barriak inkiridua aditza izan arren EGIN itzagaz ez sendotutea jakin-eza zala uste neban. Baiña idazti zar batzuk, irakurtean, euren egilleen jokabidea orixe dala oartu naz. Mogel'tarrak, Lardizabal'ek, Iztueta'k eta beste batzuk be EGIN ori ez ebela ikusi dot.

Ostera, orduko beste idazle batzuk erabilten ebena ba-dakigu. Ta au argitu naian euskera jakintsu bateri idazti neutsan. Bere erantzuna: «Erria, ontan ere beste zenbaitetan bezela, bi zatitan banatua dago. Gipuzkoa'n, Bizkaia'n eta Nafarroa'ko zenbait tokian (Gipuzkoa'ko mugan) erriak erabiltzen du EGIN ori». Beraz, era biak jatorrak izango dira. Baiña bietatik bat obea ez ete da? Nik baietz esango neuke, gure euskera, aditza inkiridua danean EGIN sartzea, obeto dagola. Ez dira bardin «He vendido el auto» ta «Ya he vendido el auto» esatea. Ta EGIN itza sartzen ez dautsenak, sintaxis desbardiña emoten ba'dautse be, itz bardiñakaz euskeratuko leukez esaldi biok. «Beribilla saldu dot», lenengoa ta «Saldu dot berebilla» bigarrena. Guk ostera «Beribilla saldu dot», eta «Saldu EGIN dot beribilla».

Konplementorik ez daben esaldietan oraindik bardintasuna andiagoa dabe batak eta besteak. Ume bat kalean jausi ta miñez etxeartzean zer jazo jakon amak itaundiuten ba'dautso gure alderdikoak ola erantzungo dautso:

«Jausi EGIN naz».

Ostera, EGIN ori sartzeko oiturarik ez daukenak olan esan bearko dabe:

«Jausi naz» edo «Erori naiz».

Agirian dago ba gure esakerak gauzen esanaia obeto azaltzen dabela.

Gaiñera, inkiridua ola edo ala nabarmentzea ez da aditzeko kontua soillik euskeran. Iznordeak eta beste geiagok be nabarmentzen dabe. Ni = neu; au = auxe; emen = amentxe; ta abar.

Amaitzeko, gutzat EGIN paltan diran esaldi batzuk ementxe ipiñiko ditut. Parentesis artean arkitzen dana nik geitua izango da.

«1.920'an, sobietarrak agindu zuten berak nagusitu baiño lenago indarkerian Errusia'k egindako itzarmenak (trataduak) ezerzetuko (ezereztu egingo) zituztela».

«Baiña Eleizan eta Marxismoan galdu (egin) eben fedea».

«Oteiza ara igo zanetik nere Arantzazu zaletasuna aunditu (egin) dala esan leike».

«Estadu Batuak oraintsu aleen sal neurriak beratu (egin) ditu».

«Langilleak horrelako egoerarik ez dute ontzat ematen ta jeikitzen (jeiki egiten) dira»

KAMIÑAZPI



GAZTE

AUSNAR BATZUK

Txina, beti arrigarria; Ludian dagoan aberririk nagusienetariko bat, oraintsu arte baztertua, jaurbidearen antolaketea bere edesti zarra baizen illuna daukana; Txina galgarri ori, legezko munduan sartu da, irripar eta ikurriñen artean, ta atzoko arerioen lendakariak deitua.

Ustego ta arrizko oldozketearen aurean, ibilli-bearra jagi de nagusi. Eta esan danez, Txina'k bere goiburu gogoangarri-berezia, auxe; bene-benetako aberri iraultzaille bakarra izatea, galdu dau. Ikusi dogunez, ba, iraultzaillea izatea erreza da bakarrik, lagunge egon bear danean, ta errezago bakarrik eta lagunge utzi gaituenean.

Bakarrik eta legunge be, iraultzaille sutsuek geratu jakuz Txina-barik (augaitik, len baiño iraultzailleagoek izango ete dira). Oraingoan esku-emoille baten billa joan-bearrean dabiltz, duan iñok eskua iñori emoten eztauna jakiñik. Pekin'en, munduan dagozan nagusi gitxien bi urreratu egin dira. Eta nagusiek urreratu egiten diranean, orreik morroi gizajuok!

Ederregia zan Txina'ren salerosketea; ta munduan salerosketea estutu egin danean, alde biko ta guragoko itunakaitik, Txina, itxaropen barria dau Bon-bon Bizikerak.

ONU'n sartu ta berealaxe entzun ditugu asierako eskari biziek: Hong-Kong eta Makao, europarren menpeko kaiek, Txina'ri itzuli bear jakoz. Gaurdaiño kai bi orreitatik egin dau sartaldeak salerosketa guztia Txina'gaz. Alan da guztiz ere, egoera aldakorraren aurrean, uskeria dirudi esanak.

Ango nastapilla bestelakoa da. Txina bazterturik egoala, ta sobietarren laguntza okerra bitarte zala, —Stalin'en arotik zur-zur ibilli da Errusia Txina'gaz— aren ondoko erriek, Korea, Biet-Nam eta abar, atetik bultzak ezagututeke bizi al izan dira. Egunotan, USA'k alkar-ulertze batera eldu gura izan dauanean, argi ta garbi darabillena auxe da: Asia barrito zotz-egitea. Formosa edo Taiwan, Biet-Nam, Tailand eta beste erri batzuek otoz-otoan artu dabe Nixon'en auteskude-aurretiko jokabidea, ta biurtzen asi jakoz. Asia'ko ajedrezen lauki soillek diralarik, euren buruek salgaituta ikusi dabez Txina-USA'ren oturuntzean.

Ituna bera, egokia da pakearentzako, USA ta Txina'ren arteko pakearentzako, aurki: orrelantxe, eztabe barriz alkar idoroko gudategiaten; igazi ziran Korea'ren aldiak, McArthur-eta. Gudea bietnamdarrentzat, alkar il egingo dabelako itun ori betetearren, ta ezerbetan ezerbe erabagi barik. Eta gentza, azkatasuna, edertasuna ta bizikera barri baten itxaropen guztiek bein eta barriz salduta, aizturik.

Antziñako Annam oroitu bearko ete? Annam —gaurko Biet-Nam'go lurralde bat— Txina'ren izkuntzan Menpeko Egoaldea esan nai dau. Etzi Indotxina osoa beste Menpeko Egoalde bat izango ete da? Bearba ze, baiña Mao ta onen jarrailleen esanek eztira lasaigarriek, ez.

Eta oindiño beste ausnar bat daukogu: Formosa ta benetako formostarrek. Entzun dogu Txina'rentzat USA'ren oparia edo bezuza ugarte a izan leitekela, ta beraz, or konpon Txiang Kai Txek eta onen aldekoek; baiña oraingoan, lenengo ta bein, aintzat euki bear doguz izaro aretako egiazko bertakoek. Oartu bearrean gagoz, benetako angotarrek malai-jatorria dabela, ta eurentzat naiz Txiang, naiz Mao edo bion alderditarrek arrotz-arrotzek jakezala. Txina'ren menpe-aldiek lenengoz, ta Japon'enek geroago, bete eben ugartea erbestetarrakaz. Azkenengoan, Txiang'en gudarostearen etorteagaz, USA'ren zupiñen estalpean, angotarrek gitxien, biarbako ta atzeratu izatera aldatu dabez. Dana dala, Txiang-eta lurrera jota ala oraiñarte letz, USA'ren egopean Asia'ko estadurik aurreratiuenetariko bat, bertakoek eztabe egun onik ezagutuko, zalantzetan ezkabiltz.

Esamesek bala-bala, irripar eta itz mitzen ostean eztago bide onetik jakiñik; gauzatxo bat baiño eztakigu, auxe; egazkin asko daukanak lege geyago dau zupin gitxi daukanak baiño; ta zupiñak dituanak lege geyago dauka, pusil batzuk daukiezanak baiño, ta oneik be ba-daukie lege geyago, makillek dabezenak baiño.

Bide asi barriak aldi txarrek ala onek ekarriko dauskuezan, eztakigu; orratiño, ikusten dogun bidearoa goibela ta laiñotsua da.

ARRIORTUA'TAR ANDER

MENDIZALEAK

Aspaldiz ikusten doguz gure errian Gorbea'ra doiazala-ta gazte talde asko; ta ze gauza ederra dan ori!

Gure ustez orreek egiten dabena oso ondo dago, baiña beste askori be gauzak entzuten dautseguz.

Denpora asko ez dala entzun gendun, Gorbea'ko artzaiñaren ardi batzuei arranak kendu egin eutsezela, eta olan gauza asko; baita be ikusten doguz baztar asko txolet eta beste txarrikeri askogaz beterik, eta geiago arreitan aterpe basterretan, bertako arbolari be beti azkoreagaz ipiñite ikusten doguz zuzterbakokeri asko.

Ze gauza ederra izango leiteken danok orrei jaramon egiten ba'dautsegu...! Orrek egiten dituezan gazteak, ez dira Mendizale zuzenak.

Gero Mendi orretatik berantza agertzen gara San Justo'ren zugaztian; an be gauzak jaramon barik egoten dira, ez garealako kontuz ibilten; bertako ermita politori be edozer gauza ipiñita ikusten izan dogu; Gero, lengo Udan, Zeanuri'tar batzuk atondu eben eta orain ez dakit zelan dagon.

Ia ba Mendizale lagunok danok zuzenagoak izaten ekin bear dautsagu.

* * *

Gaurko arlo onen bitartez Agur bat bialdu gura dautsot neure lagun Zeberio'ko gazte talde bateri, ba-dakit aldizkari au irakurten dabela-ta.

* * *

Parkatu nire okerrak eta akatsak, urrengoan obeto izatea gure neunke-ta.

J. M.ª ASTONDOA

GAZTE, Erria deika dozu

Bai, bear nau, noski. Baiña ez lotan, ez geldi egoteko, ez besteen eginkizunak txalotzeko bakarrik. Ez au ta ori esateko, zertxo bait egiteko baizik.

Zenbat eta zenbat euskaldun gazte mendira igongo dira euskal usaindun arropaz jantzita, margo politez orniturik, «Aitor'en izkuntz zarra» kantatzen, baiña erderaz mintzatzen.


Zenbat eta zenbat Inglaterra'ra, euskerarik jakin ezarren, ingles ikastera, progresistak, jakitunak... inoxenteak! Oietariko batek, oindo gitxi dala, au iñoan: «Izkuntza tresna bat baiño ez da. Neri gitarrea guztatzen ba'zait, zergaitik txistua erosi? Beraz, inglesa guztatzen ba'zait zergaitik euskerea ikasi, egoereak obligatzen daustana jakin ezkero? Amen egoereak obligatzen dauzkuna erderea, noski».

Euskalerrian egoereak bearresten dauan izkuntza erderea, beraz, euskerea Salamanca aldean izango da. Truke.

Udaberria, lorak, txoriak,
dana abesti goxoa;
negu ekaitza urrintzen doa;
bare bare itxasoa.
Orriz apainduriko zugatzez
jantzi mendi ta basoa,
Alere nonbait negu otzean
gu, gure... osoa.

Negu otz orrek iraun ezkero
ez dogu aurrerapenik,
Su pixkat einda obe ez litzake?
gaur galdetzen dautsuet nik.
Gure Erriak lotan ez dau, ez,
gura gazte euskaldunik.
Ala ba gazte, ordua baita
jarri agudo zutunik.

EROSKI



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

ALKAR-IZKETAN

Itaunkeria dala-ta

Aste onetan, Manu, lengo alkar-izketan esan indun eztabaidakeria erantzukeritik sortzen zoala, eta burura ekarri yaustak gaur zabal yabillen beste «keri» bat. Ba'kik zein dan? Ba, itaunkeria.

—Bai, alantxe dok, itaunak egiteko oitura ixurria lez alde guztietara zabaldu dok-eta, yakiña, itanduta gauzak yakiten dozak, baiña neurritik urtetan yoanean, beste gauza askoren antzera kaltegarri izaten dirala be esango ñeukek.

—Larregia beti kaltegarri. Eta lekutako itaunik be egiten yabek! «Iri ze ardura yak» erantzutekoak.

—Nik gaztetan ñeukan lagun batek politago erantzuten yoan. Txikitxoa zoan, eta adarra jotearren, zenbat urte eukozan itandu ezkero, auxe erantzuten yoan: «Asko yakin gura dabenari, gitxi ta atzekoz-aurre erantzuten yako». Nik uste yoat, gaurko itaunzale askori be olantxe erantzuten yautseela. Itaunak egitea gauza erreza dok, baiña ondo egitea ez dok ain errez. Itandu edozeiñek egin leikek, eta orretan umeak ez dozak txarrenak izaten, sarritan zer erantzun ez dakiela itxiten abe-ta. Egia dok lelo batek minutu baten, yakitunak urte betean erantzuteko gai ez diran itaunak egin deikezala.

—Olangoetan biderik onena, «ez dakit» erantzutea izango litzakek. Eta itaunkerizaleak ixiltzeko bide egokia be bai.

—Eta yakitun batek esan yoanez, yakitun izateko bidea be.

—Nik ezin yoat ulertu ori zelan izan leitekean, eta euk esan bearko daustak.

—Bein Paris'en bizi zoan Duhamel eritxon gizon yakitun bat ortziztilarien bazkunako idazkari zoana. Egun baten andra andiki bat yoan yakoan, berak ainbeste ekien gayetzaz itaun batzuk egiteko. Eta lenengo itauna auxe izan zoan. «Izar bikotxak» deritxoenak zelan azaltzen dozuz. Yakitunak gauza garbirik ez ekiala erantzun yautsoan. Batzuk era batera eta beste batzuk bestera azaltzen ebela-ta. Gero onen antzeko beste itaun bat eta gauza garbirik ez ekiala erantzun yautsoan. Orduan emakume andikiak bizi-bizi yarrita erantzun yautsoan: —«Zuak yakitunok olango gauzarik ezpadakizue, zer dakizue ba?» ta erantzuna, «Andrea yakitun izatea «ez dakit» esaten yakitea da».

—Ederto erantzunda. Baiña ezyakiña orixe ulertzeko be gai ez dok izaten-eta, danerako erantzuna asmatzen yabek, ta nik uste yoat gaur eguneko neurribako erantzukeriak be zusterrak ortxe yaukoazala.

—Izan be, «ez dakit» esaten yakiteko zerbait yakin bear dok. Ostantzean, Bagilla inguruan etxera «kalabazakaz» yoaten doan ikaslea yakitun nagusi izango litzakek.

—Benetako yakitunak, lenengo dakiana auxe izaten dok: Gauza asko ez dakizala, eta ortik beti geyago yakiteko egarria. Ezyakiñak ostera, dana dakiala uste izaten yok eta geyago ikasteko gogorik ez yok izaten.

—Orrek esan gura yok ezyakiña geroago ta leloago egiten dala ta yakituna, yakitunago.


—Esan yogun guztitik gauza bat garbi atara geinkek, itaundutea zurtasun eraz eta neurriz, ikasteko bide egokia dokala, eta gaur alde guztietan zabal yabillen itaunkeria gauzak nastu eta egundo ezer ziur ez yakiteko bidea.

—Berandu egin yakuk eta urrengoan yarraitu bearko. Agur.

—Agur! ondo ibilli!

URIGOITIA

MENDIRIK-MENDI



Orretara ibilliten gara, erea daukagun guztietan; mendirik-mendi ta basorik-baso naita beste kirolak be egiñak izan, mendikirola dogulako atsegiñen, beste kirolak eztabezan ongarriak be ba-dauz-eta, batez bere osasunantzako baita jakintzarako be. Eta, ori dala bide azkenengo bost edo sei igandetan beste ainbeste menditara joan giñan jendeberebil andi baten berrogei ta amar edo irurogei mendizalen tartean. Joan garan mendi orreik, edo inguruetan ba-dira zer ikusia daben gauzarik asko, dauken ertiagaitik, daben edestia dalako eta abar; geien baten orreik ikus ta ezagutzarren egindako txangoak izanik, an izan giñan.

Tamalez, baiña, ezta orretara izaten. Naita inguru artara joanez bidean, berebillean bertan, jakiñarazoak izan alderdi bakoitzean zer ikusgarri aurkitzen zan, banaka bat, gitxi batzuk bakarrik ikusten gendubazan ezaugarri orreikaitik arduratuten. Egixa da, batetik eguraldi kaxkarrak, euri ta laiñotsuak euki genduzan eta, beste aldetik, ibilketa orreitan orduak geiegi neurtuta diralako, mendira igon eta jatsi baiño askoz geiago ezin egin. Baiña, astitsuago ibilli giñan txangoetan be ez dogu ikusi zaletasun andiagorik, geure-geureak diran toki ta lurraldeak aztertuteko. Ondiño geiago; txangoa eginda aldi batera itanduten ba'dautsagu zein bidetatik, zelango basetxeak, ze motatako edo zer aberastasun aurkitzen dan alderdi artan, askok, geienak eztakite azalpen bat emoten, lasterka utsean igon eta jatsi baiño besterik eztabeelako egin, sarri askotan euren soiñaren kaltegarri, bear dan baiño geiago, ta zetan eztabela, nekatu diralako. Ta ori gure ustez tamalgarria da euzko mendigoizale batentzat, bere Erria ez ezagutzea.

Lenago be iñoiz esan dugu, euzko-mendizaleak beren batzartokietan idazti, itzaldi, argazki edo mintz bitartez landu ta ezi bear dau bere adimena, non zer dagoen jakiteko eta, gero, bere ibilkeretan alderdi artara zuzenduten aleginduaz eta soiña eziaz ikasi daituzan alderdi ta ikuskizunak egiztatuteko. Leen, orain, adiñean pizkat goratuta dagozan mendigoizaleak, zorionez ainbat bizi dira, ezetariko zalantza barik, Euskalerria, bere okoillu guztiak ondoen ezagutzen ebeezanak ziran: Labayen'dar A. M., Peña'tar Sebe, Goikoetxea'tar Nestor («Urdiola») ta abar ta abar, beste geiago aipatu ez arren. Zenbat ikasi daikegun mendi-zale jakitun orreikandik geure aldetik aleginduko bagintzakez!, Eta bear-bearrekoak doguz, norberan edestia, oiturak, aberastasunak edo txirotasunak, au da: norberan lurraldea barru ta azalez ezagutzea. Aleginduten ez dan euzko semeaz, zer itxaropen euki leike gizadiak?

Euzko mendigozalea, kirol garbi zaleakementsua! EZAGUTU EGIZU ZEURE ERRIA!

* * *

Epailla'n 26'gn. ospatu zan mendimendiko ibilketa neurtu bat Zamakola (La Peña)'ko Osea mendi-zale bazkunak antolatuta. Ibilketa ori etzan luzea, baiña bai pizka gogorra, inguru ortan diran aldapa erpin eta, beraz, jatsierak be asko diralako, baita bai goizean ta bai geroago jausi ziran euri burruntada garratz batzukaitik be, eurok labandu ebezalako bide zigorrak.

Larogei ta lau biñakote, gizonezko ta emakumezko, urten ziran eta amaitu be bai ibilketa polit ori. Gu be sarritan orretako ibilketan ibilliak gera-ta, Arnotegi'ko gaillurrean egon giñan poz-pozez mendigozale kementsu orreik ikusten, ta euretaiko ezagun asko atsegiñez agurtuten. Aupa neska-mutil argi zindoak!

ALTUNA'TAR JOSU

gazolin-iturrian ordaintzeko era-barria

Banco de Vizcaya'ren Gazolin-Txartelak

Ez daukazu zetan txindiz ordaindu zure belbillaren errekiña.
Banco de Vizcaya'ren Gazolin-txartelak orretarako dira.
Aldean dirurik eroan ez arren be, Gazolin-txartelokin betetzea egingo dozu. Gazolin edo gazolioen eralketak zeatz jakingo dozuz. Ta aldian be aurreratu.

Danori errezagoa ta ariñagoa izango yatzu.

Gazolin-txartelok zuretzat baita saltzaillearentzat be dirua lez dira, ta Banco de Vizcaya'ren edozein lantegitan jaso leike ordaiña.

Itaundu egizu. Ta gaurtik eroan zure txartel-sorte .

BANCO DE VIZCAYA
zure alboan beti

Aprobado por el Banco de España n.° 8469/3

TXIPRE'ko LENDAKARIA

Aspaldiko urte auetan, Makario, Txipre'ko Lendakariatzaz makiña bat idatzi da, milloika orri. Txipre'ko arazoak ain zaillak izan bear, diran bezela konpontzeko! Bertan bizi diranak, guziak txipritarrak ez diralako. Olako ixtilluak, gaur egunetan laterri askotan arkitzen dira. Laterri bakoitzak, etnia edo minori askotakuak ditualako, ta bakoitzak bere izkuntza bata bestiakin oso batekoz-beste, zuzendu ezin diran arazoak sortzen dira. Bai-dira ere leku askoetan, naiz ta minori ori besteakin oso ezberdiña izan, zigorrez edo gogorrez bizi bearrean daudenak. Beste askotan ostea, ematen diote alako askatasun pizkat, kontu egizu, Eskozia'n ta abarretan. Oiek, besterik ezean ori dutelako, paketsuago bizi dira, naizta askatasun osoa izan ez. Bai-dituzte beren agintaritzak, batu leku edo parlamentuak. Bai-dute beren izkuntzetan itzegiteko erreztasuna ere. Beste askotan ordea, eziña dute.

Txipre'n, iru minori daude. Turko-txipriotak, greko-txipriotak eta irugarren, griegoak. Griego txipriotak 400 milla biztanle, turko txipriotak 100 milla dituzte, minori txikia griegoak.

Griego oiek, Txipre Grezia'kin, batu nai dute. Txiprio tak ostea nai ez, iñoren agindupean baiño naiago dute askatasun osoan bizi. Turko txipriotak ostea, ez dute nai besteekin batu, ta oiek nai duten askatasuna da, Txipre iñoren menpean ez dedilla jarri, berak eta besteak lagun bakoitzaren ideal edo naiak beteaz, ta pakean bizi.

Gribas koronelak, buru zalarik, askatu zun Txipre ingelesen aurka. Askatasuna eman ziotenean, Gribas'ek alegiñak egin arren Grezia'kin batzeko isla osoa, alperrikako pausoak eman zituan, gelditurik Txipre bakarrik, ta aske, iñoren menpetasunik gabe. Gribas'ek orduan, beste biderik ez zun izan, Grezi'ra joatea baiñon.

Urteak joan dira arrezkeroz, bien bitartean izkanbillak eta eriotzak. Egunontan berriro Gribas eldu da Txipre'ra, eskutuan, eta or dabilt berriro naspilketan.

Oiek orrela dirala, zer esango degu Makario Lendakariatzaz? Makario eliz gizona danez... ez det uste bere lekuan danik jaurlaritza eramaten, baizik elizako goraberak zaitzen... ta besterik ez. Ori eskatzen diote orain Grezia'ko bere eliz buruak, uzteko lendakaritza ta emateko besteren bati.

Bai, ez det ongi ikusten Makario gotzaiaren portamena. Izan zan bera Lendakari jartzeko une latza askatasuna lortu zutenean, Urteak joan dira ordea, ta gaur gauzak batekoz bestera daude, ta eliz gizonak, obeki lukee beren tokian agintzea eta ez lendakaritzan.

Erriak dirudianez, txipritarrak, bera nai dute Lendakari, baiñon Lendakari danak eta gaur Txipre'n, politikoa izan bear du. Politikoa izatea, ordea, eliz gizon batentzat tamalgarria da. Gaur egunetan bai-dute naiko lan eliz gizonak beren siñismena, beren eliza zaitzeko eta ez politikan sartzeko.

Kondairak, batez ere gure gizaldi ontan, izan ditu naspilketa ugari: Polonia'ko kardenalak izan da daukan burruka bizia, aspaldiko urte auetan, ikaragarria da. Polonia'k mayoria katolikoa du, minoria izanik komunistak. Minori ori ordea dago aintzen, berak dauzkalako tramankuluak besteen bizkarretik ezarrita. Ez ori bakarrik, bere inguruan, mugan rusoak ernai...

Begira zer gertatu zitzaion Ungari'ko kardenalari. Ainbeste urtetan amerikanoen etxean gordeta egon ondoren, azkenik irten zun, ta eldu Erroma'ra, geroztik joanaz Austria'ra. Bai-dira zigortuak izan diran beste gotzaiak ere ta orrelako gertakizun minkoak anitz ikusi dira Europa'n.

Zergatik? Politikan sartu diralako? Ori, nik baiñon obetaogo berak jakingo dute. Dakigun egia au da: eliz-gizon bat ezin leikela sartu politikan, bere erlijio gauzetan baiñon.

Ez da ain zailla naspilketa oiek bear diran bezela konpontzen. Konponketa oiek izan bear, bakoitzari berea emotea, au da, errespetatu beren oiturak, izkuntza ta gaiñontzeko ukatu ezin leiken askatasuna.

E. OZKIN

Polonia

Warsawa, Polinia'ko uri-nagusiaren erdian, Jesus'en Biotzari eskeiñitako eliza bat aurkitzen da. Nazi-alemandarren erasoei, aurpegia emateko gaztelu, ta Wyszgnsky kardenalaren itzaldi-toki.

Eliza onen aurrean, Kristo, sorbaldean gurutzea daramala, oroikarri bikaiñ bat egin dute. Bere erria Kristo'ren nekaldian bat eginda ikusten dute, errusiar eta alemandarren erasoek mendi-zelaiak eta erreketako urak odolez gorriturik utzi zituztenetik. Mendi ta etxeak erre ta gizon eta emakumeak orobat, aur eta gurasoak jarraikatu ta bizia kendu, eraso auek etzaizkoe aztutzen.

Ta Jesus'en Biotzaren eliza aundi au maite dute. Eliz onen barnean Chopin musikalari ospetsuaren biotza begiratu ta gordetzen bait-dute. Chopin musikalari bikaiña bakarrik etzan izan, bere eresiak Polonia bere aberriari eskeiñiaz bizi bait-zan.

Gomulka'ren eroriera ondoren, rusoen bildur ziralarik, Polako-Kristau-Abertzaleen azkatasunaren itxaropena nabaitu bait-zuten. Komunistak munduan zorigaitzik aundiena, aberri katoliko onekin egin dute.

Copernico ta Chopin'en Polonia aberriak; 32.000.000 biztanle ditu, ta bere zabalera 312.000 km biko da, ta biztanle auetzaz at, 5.000.000 Ebreo bizi dira. Guda aurretik 4.000.300 protestante, 400.000 ortodoxo, ta beste gaiñontzekoak katolikoak ziran. 100'dik 70'ek Kristautasuna bete ta burutzen dute. (Ameriketako laterri-batuak, 39.000.000 katoliko ditularik, 9.000.000 Polako'ak dira).

Komunistaren agiria dutenak, bi milloi biztanle inguro izango dirala esaten dute. Laterri ontako agintariak eta elizakoek, arazo aundi ta zailtasun ugari dituzte. Komunistak, «Langille bakar» alderdia berekin dute, ta 460'tik 256 exerleku dituzte, 117 aulki, nekazari-elkartuen eskuetan daude. Demokratak, 39; ta alderdi-gabekoak, 48 jar-toki. 1.945'garren urte ezkero, elizaren aurka burrukatu dira.

Ba-dakigu, Baltiko ertzeko odol-ixurtzeak diru gora-beerarenak izan zirala. Baiña langille esnatzea, elizaren naiak eta bultzadak lortutako burruka izan zala, nork uka lezake? Bestalde, ainbeste eriotz bere soiñean ikusirik, (Azkenengo gudatean, 6.000.000 il ziran, eta erdiak judutarrak). Polonia'tar abertzaleak, beti eliza-katolikoagaz bat egin dute, ta antziñatik era ontara bizi izan oi dira. Abertsaletasuna ta Kristautasuna, biak alkarturik jokatuaz gaiñera.

966'garren urtean, Mieszko enperadoreak Kristau izatea erabaki zuan, eta beragaz aberri guziak. Ez indarkeriz, naitasun utsez baizik, Gizaldietan pake santuan bizi izan ziran. Usterik gutxien danean, argi paketsu ori, goizetik gabera itzaltzen da. 1.794'garren urtean, Rusoa'k, Prusia ta Austria'tarrak, indarrez sartuaz, Polonia aberria zapuztu zuten ta sasi-bizitza itsatsi zioten. Orduantxe aberri askatuen zerrendaren artetik izkutatua izan zan, 1.918'garren urterarte zatituta gelditurik, len bereak izandako mugak itzuli zizkioten, baiña ez Prusi sortalde ta Silesi goierria. Geroxeago, Galitzia bereganatu zuen.

1.939'go Dagonillaren 25'an, Polakoak aitzikitzat arturik, Hitler'ek, Stalin'egaz alkarri ez erasotzeko agiria izenpetu zuen. 1.939'go Iraillaren 1'an, Dantzing'ko igarobidea zala-ta, aitziki ori bitarte, Hitler, indarrez Polonia'n sarturik, amabost egunean jaun eta jabe egin zan, gorrotozko ta mendekuzko zama ezarriaz, rusoek eta alemandarrek alkarrentzako banatu zuten. Olango naigaberik!

Zenbat egun triste igaro zituzten! Auschwitz, Majdanek, Treblinka, Treblinka'ko aur gaxoak - Belzc, Sabidor, etabar...

Oraindik aspaldi ez dala, Oder-Neisse'ko muga dala-ta, Brandt alemandar buruzagia, arazo au zuzentzera joan da, ta Auschwitz'en belanikatu zan. 1.944'garren urteko udaran, «aliatuak» Normandi'n lurreratu ziran. Alemania ia geiago ezinda aurkirzen zan. Polonia'tarrak ikusirik rusoek beste ertzetik jotzen ari zirala; matxinada baten altxa ziralarik, millakak bizia eman zuten. Rusoek lagunduko ziotela uste bait-zuten, baiña auek, Poloni sortaldean bertan-bera doillorki zokoraturik, utzi zuten.

Gero gudaren bukaera, ta guda amaiturik, Postdam'go «pastela» eratu zuten ta Polinoa rusoen eskuetan gelditu zan.

OSARTZU

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

CASCO VIEJO
TENDERIA

Boutique
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak
Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

ZER GERA GU?

Goiko idazpuru ori irakurri dozuneko, ba-dakit zer erantzun dozun. Baiña ni, gaur, beste arazo batetzaz nator. Europatarrak gera ala ez? Itaun oneri bere erantzungo zeuntson onezkero. Onak ala txarrak? ¡Oorixe da or erri barru aldean darabillien arazoa, nik irakurri dotanez!

Bai jaunak! Erbesteko lurralde erdi-erdian dan uri aundiko egunkari batek azalduten eban zelan jokatu bear dan europatar ona izateko. Besteren batzuk be ba-dira egunkari orrekin bat dagozanak. Europatar onak gerala, edo dirala, alegia.

«Europatar ain onak baldin ba'gera, zer dala-ta ez gagoz Danentzako Saleros Legeak biribildu dituen Batza orretan? Mercado Comun ean?» —erantzuten eban beste izparringi batek—. «Edo-ta —jarraitzen eban—, beste europatar guztiak txarrak ete dira?»

Eta barriz be lenengo itaunera joten dot: ZER GERA GU? Erantzun dozu ezta?

Baiña... onak ala txarrak?

«Zenbat buru, ainbeste aburu». Geu be aburu onetan nastuta gabiltzala ez dozu uste? Aburu au argitu al ba'ledi!

Erbestetarrak lez ibilli bear ete gara ba, gu onak eta besteak txarrak dirala, esaten?

Zu Oñaz eta ni Ganboa? Ni Oñaz eta zu Ganboa? Zu oiñez eta ni zaldiz?

Jarri daiguzan aurrean bi zaldi; zu ta ni sartu gaitezan tribulian, patxadaz traka-traka bideak ziarkatzeko ta maite-maite dogun elburua lortzeko.

ABELETXE

OSOTU DAIGUN EUROPA

Gai sakona ta gaurkotasunez beterikoa nunbait. Saiotxo bat ba'da be egitea nai neuke oingoz, geroko baten bear bada luzatzeko asmoaz.

Europa osotu oi daben laterri orok, gero ta Europa batuago bat iriztea nai leukee. Orretara aspaldi danik euren barnemuiñoen indarrak al giñoan alkartu nairik daragoioe. Oraintsu be Prantzi'ko Lendakari dan Pompidou Jaunak jomuga onetzaz mintzaturik, bera Europa Batuaren buruzagi ta lemazai lez orok begiztatu daien gura leuke. Beti oillarrak gangarra tente! Ta erri txikiekaz zer? Begirapen labur baten, bataz ta besteaz zertxobait azaldu bearrean nago. Ta dana esatera ezkero, buru aiña aburu ludi ontan daukaguzanez; oztopoz, zoztorrez beteriko zeregiña danik, ezin uka.

Ekonomi aldetik aurrerapenak, agerbide galantak ba-damoskuez egiz. Amar laterrien Europa, lortu barria dakusgu, paperean beintzat.

Baiña Konturatu oi ba'gara, Politikeaz, Laterri bakoitxaren txindi batasunagaz, Europa'ko gudarozte bakarraz, muga bageko Europa amesgarri bategaz, ta oroz gaiñ bera (Europa) osotu oi daben enda, erri guztien mintzaeraz, oiturakaz ta abar, zer desakegu? Errien ele ta ekanduak euren altxor bereziak, beiñenak diranez, nola guretzako oiñarri, zustrai ta biziarauak diran enda-adiguri, doai oneik batu leitekez Laterri ospetsuek darabillezan norgeiagoko joko naskagarriaz, nabarmendu guraz, erri txikien nortasunari ia jaramonik be ez ba'dagioe egiten? Negargarria izanik, egi biribilla dogu beraz.

Lenen ta bein gizaki bakotxak bere nortasuna osotu bear du; gero sendiarena noski; ondoren, bere erri ta aberriarena. Onela naiz legerri txiki naiz aundikoak izan, guztioen olde-naimenak baturik errezago izango litzakigu elburu zoragarri ori lortzea, Europa batu batera alkarturik jotzea.

Gure arazo bikaiñenetarikoa ba, gure erkideak onetara zuzentzea izan daitela. Dalako batu ori ez daitela iñola ere erri txiki-aundiren naaste bat izan. Bestalde, danok pozarren osoturiko Europa jator bat, guztioen izapide, eskubide ta bete-bearrak aldeztu dagian Laterri Nagusi Orokar bat.

ARREGI'TAR JOSU

ZAARREGI EZ

IAKUE GAUDAGNINI'ri ala iruditu zaio. Zaarregia ez dala. Alegia, irurogei ta amar urte dituanean bertan Mixio-lanetarako gai dala.

Bitartean, ainbeste ta ainbeste gaztek, non-nai izugarrizko eziñak ikusten dizkigute. Ta, beren bizi guztirako Mixio-lanetara ioateak zer nai duan gure gazte iaio oriek guri galdetzen. Bait-dirudi ludi ontako gure egunak epeka eman bear ditugula: iritzi berriek ala esaten eta adirazten'edo.

Leenagokoen usteak eta beiñolako iritzi ta iardunak, gaur gatzik gabeko gertatzen. Bai orixe! Ez gatz eta ez piper, noski! Siñismena zabaltzeko alegiñetan, gazteak sutsuago ariko! Beste edozein lanetan bezelako sua agertuko!

Aipatutako iritzi oriei ezer kendu gabe, urte elduetan aurreratzen asientzat zeregiñik ez dagoenik iñork ez esango!

* * *

Guadagnini ez da apaiza. Alegia, ez mezaduna. Baizik Anai-Laguntzaille esaten zaien orietakoa. Italiarra. Trentino'ko lurraldean iaioa. Pedrazo deritzan irixkan.

Aprika'ra lenbizi, ogeita lau aurte zituanean abitu zan. Eta Scillule'n Sudan'eko egoaldean ibilli amalau urtez. Eta emezortzi urtez Bahr el Ghazal'en. Guztira orra ogeitamabi urte.

Orain beretzat toki egokia, Kongo'ko iparraldean eguzkirago Tadu'n izango du. An, oraintxe bertan, bere Anaidi'ko askok ikusgarrizko lan ederrak ari dituzte eta guztientzat ba-dute izerdikizun ugari. Orrela, beraz, Iakue Guandagnini Anaiak besoak antxumatuta egoterik ez du izango. Eta, egia esan, mixio-lurretan ibilli ez danak, nondik iakin olako lekuetan izaten diran lan eta lantxoak eta zeregintxoak!

Besterik ez ba'da, adin-kidekoei asperaldiak arindu!

Asper-aldi edo goibel-aldi orobat izan. Geron indarrak beeraka ioaten diran uneak' edo olaxe izaten ditugu. Makaldi eta auleri!

Eta orain neronek ikusia gogoratzen zait. Arjentina'n zan. Mar del Plata irian, 1968'gn urteko dagonillean. Lurralde aieten negu. Urte artan bi negu ikustea gertatu zitzaidan. Eta, tartea uxtiatuz auxe ere esan dezadan: il orren eusko izena ez dala Arjentina'n asmatua. Izatekoan ere Arjentina'n udaguena orrillean izango.

Or ba: Mar del Plata'n Naparroa'ko Buruiñurdun lekaideak duten etxera ioan nintzan. Egun artan meza-laguntzaille Buruiñurdun Anai Bizar zuria izan nuen.

Arek neri igarri alderdi aietan gutxi ibilla nintzala ta galdetu zidan:

—Iñondik ere euskotarra zera.

—Ezin uka nezake. Zu ere, bai, noski! Nongotarra?

—Andoaindarra! Baltzun'go semea!

—Ni ere andoaindarra naiz. Loiola'ko Iñaki'ren saillekoa.

—Daramazun soiñekotik ez nizuan igarriko.

—Emen, zer lan dezu?

—Erandiotar seme Eguzkitza Anaia'ri lagundu. Arako abestiak dionez «gaztetasunak nenrabillan» eta Uruguai'ra etorri nintzan. Egun latzik ikusia naiz. Alako bizitzaz aspertu nintzala beiñola ikusi nituan lekaide auen ateetan deitu nuan. Artu ninduen eta ia orain arte, Anaidikook ikasleak ditugun etxeetan ibilli naiz...

* * *

Baltzun'go seme Ormaetxea'k Guadagninik aiña urte ba-zituan. Ondotxo ere bai. Ta Eguzkitza'k bakar batzuk geiago. Eguzkitza, bere bizitza guztian lan eta izerdia besterik ez... batez ere, garai batzuetan Arjentina'ko bero sapa aietan. Nik ikusi nuanean oso autsia zegon. Baiñan, izlari egokia: Erandio'ko txokoak gogo-gogoan zeramazkian.

Eta, beren adiñean ainbeste aurreratu oriek zergatik Aberrira ez itzularazi? Galde onentzat erantzun zuzena ba-dagola uste det. Eta... urtez zaartu ta zarpailduak Aberrian lanik ez al dute emango? Eta, giroz aldatzean, aien osasun makala ez al da era bat txartu ta ondatuko?

Igazko orrillean Guadagnini berriro Aprika'ra itzuli zan. Pozik. Lenbizi bere aberria utzi-zuan bezin alai ta ustetsu. Agur egitera agertu zitzazkionei, ber-berak alaxe aitortu zien.

ETXEBERRIA'TAR P., S. I.

KATEIAK URRATU

Iñork ez dau nai kateirik. Estututa egoterik. Sortzetiko izaeraz gizonari igoiña emon dautsoe edozein eratako lokarriak. Gizonak, bere naikeriz, ez dau askatasunaren egarri zoragarri ori sortu ta indartzen. Lagunaren eskuan dagon zerbait izan ba'litz, gauza ain indartsua ta orokarra etzan izango.

Gizadi guztiak nai dau aske izatea. Bizitzaren oiñarritik dator gogoaren frutu au, arbolaren sustraitik adarraren alea datorren bezela. Zorionekoa era orretan esnatzen doan gizadia, askatasun Egille danaren antza artzen doa-ta.

Kateiak era askotakoak dira, luzeak, gogorrak, ugerrezkoak, burdiñazkoak, guzurrezkoak, galtzairuzkoak, egi-ausleak. Ta guztiak dira txarrak, gizonari min emoten dautsenak, Gizadiaren zapaltzailleak, ta gizonak au ezin dau onartu.

Guzurraren kateia ba-da munduan ta oso naskagarria da. Gizonik ez dago, bat bera be ez, beste iñork norbera atzipetutea nai leukenik guzurraren bidez. Norbere giza duintasuna, guzurrez, iñork zapaltzerik ez dogu nai. Gizonaren zatearen aurka dago. Argia ta egia nai ditu buruko almenak.

Guzurra darabillen lagunak, gizontasuna galdu dau. Bere izate jakiturizkoaren egoak mostu ondoren, lagun kidekoei barre egin gura dautse. Bere asmo traketz onek aurrera eroatea lortzen ba'dau, gizonari irri dagiotso ta kalte egiñaz, zapaldu. Guzurraren kateia, bete-betean, gizadia apurtzera doa.

Guzurrak, berez, gizartean ez dau eskubiderik. Noz kenduko ete da ainbeste guzurkeri lurretik? Guzurrak, sama-samatik, gizon guztia ito nai dau. Alena alakoa!

Beste katei bikoitz bat, diruzko aundikeria da. Katei onek, lenengo, diruzale ta aundikeri zalea dana, poliki-poliki, baiña gogorki, estutzen dau. Negurri gabeko norbere-zaletasuna ezarten dautso. Alderdi guztietatik «neu» ikusten dau. Ta auxe zaindu eziñik dabil era guztietara.

«Neu» aundi izatea nai dau, «neu»zabal egotea, «neu»diru askoren jaube egin arte, iñun, onik ez dauko. «Neu» bide ortatik ibillirik, nortzuk estutzen diran ta zenbat biurtu beartsu, orrek ez dautso ardurarik emoten. «Neu» makillagaz dabil goiak eta beak arturik, arturiko saillei eutsi eziñik.

Ta diru nausikeria, olan dabillen bitartean, asko ta asko eskubiderik ezta, dirurik barik, baztertuta. Gizonari dagokion nortasunik ez, ta ezer ez. Arraiña sare barruan bezela, katei ugerrezkoz alderdi guztietatik inguratuta, lotuta. Ta gizona ezta orretarako jaioa. Lagun bakoitzari bere izateak eskatzen dautso duintasun on baten erako askatasuna, nortasuna ta jaubetasuna.

EGI-EDER

Zeanuri

Lengo aldi batean, eupada bat bota neutsen gazte batzueri, zeozer egiteko Euskeraren alde, ta orretariko bat, emengo barriak AGUR aldizkarirako idatzi. Nik baiño obeto egingo dabezala, sakontasun geyagogaz edo gaiak euren erarago edo gazteen jokabidetik eta abar.

Ona emen guraso bat urduri non datorkidan diñoala: «Ez dogu gura, ba, disgusturik ekarri daiskuen gure gazteak. Euskerea ez da izan orain arte ondo artua; orain be ez dakiguz ba ondorenak». Erantzun neutsan: «Orain be erastuna jarriko ete dauskue Euskeraz jarduteagaitik? Ori baiño ez ba'da, atzamarrak utsik dodaz».

Beartu, iñor be ez da egin bear, ez gara danok eretxi batekoak-eta, ez da orrela? Baiña ez uste izan ni be larrosa artetik nabillenik beti, ez orixe. Arantzak eta beti be zorrotzak aurkesten yataz, baiña ori gora-bera, beti aurrera; ainbat aixe otz, euri ta eguzki bero artua nozue ta gogorturik nago, erratuek be ba-dodaz, baiña zer egingo ba!

Bilbo'n bizi diran zeanuritar batzuekaz topez egin edo aurkitu nintzan orain dala aldi gitxi. Eurak esan eusten AGUR aldizkariaren irakurle dirala ta gogoz eta pozik irakurten dabezela emengo barriak, eta jarraituteko idazten, eta geiago luzetuteko, eta abar. Eskerrik asko lagunak; aintzat artzen dozuezelako bere, jarraituko dot idazten eta pozik, al dodana egiteko gertu nago-ta. Ta, zeuok ez dozue ortik ezer egiteko asmorik? Inguru ortik emengo asko zaree ta zeozer egin zeinke ba, ta zuen barriak guk be pozik irakurriko gendukez. Niri be apur bat kostetan yat, gauzak atonduten edo petzetan, iñoiz burua be mindu arte.

Baiña ori eta geyago ez ete dau balio gure izkuntza onek? Baietz uste dot.

GORBEITARRA

Galdakano

Gai mamintsurik, sakonegirik bear bada ez dogu erabilliko gure idazkietan, baiña itzal geiegigaz idatziten dogulakoan nago geien batzuk beintzat, eta naita, orretara izan bear AGUR lako aldizkari batek, elitzake txarto izango, aldi luzaroan gure adizkide zintzo ta lagunkide jator «Abeletxe»k idatziten dauskun antzera, barregarriz idatzitea be, dakitenak jakiña! Iñoiz baiño bearrago dogu aldi garratz oneitan barre samur batzuk egitea-ta.

Gu baiño ikasiagoak be esan oi-dabe; barreegiñazotea askotzaz gaitzagoa dala negar egiñazotea baiño, ta orretara dalakoan gagoz, baiña, noizian bein beintzat, alegindu gaitezan ea irakurleak alaituten doguzan.

Ene lantegian izkirimiririk asko, entzuten dodaz, baiña gitxi geratuten dira nire oldozmenean, ara emen ene adizkide ta beraz AGUR'en irakurle dan Erramun'ek esan eustana:

Egun baten albo errietatik etorri ei-zan errira, txarri txikiritzaille edo irentzaille bat ea errizka orretan ba'egoan bere lanbideko zeregiñen bat itaunka, erriko oski-tolostzaille-bizarkentzaille-«sankristau» ta eztatik zenbat lan bide eukazan bategana, ta onek maltzurkeriz beterik, esan eutsan: —Bai, ortxe goragoko basetxe zuri zabalean eukiko dozu zer irendu, makera bat eta bargasta bi daukez-ta...

Joan zan irentzaille ori amalargun apain bat eta alaba txairo bi orreik bizi ziran etxera ta, ateondoan eeup! ebaneko urten eben iru emakumeak esanaz; Zer nai dozu? —Baa, or errian esan dauste makera bat eta bargasta bi dagozala emen irenduteko, ta orretan etorri naz.

—Eee, zer esan dozu? —Baa, irentzaillea naz ta... esaten asi zana amaitu baiño leen, urten eben emakumeak batak giñerra-makilla, besteak akuillua ta irugarrenak sardea eskuan ebela, ta, irentzaille gixaxoa lasterka utsean, asi zan, emen esaten dan lez ariñeketan, ta ez dakigu noraiño eldu zan, ez ei-zan geyago ez erriyan ez inguruetan be ikusi-ta.

Egixa irakurle, barregarri ori esan eustenean, benetan barre egin neban, bear bada Erramun'ek emoten dautsen antza gaitik-edo.

BASA-JAUN

BERMEO

Beste erri askotan bezela, gure errian ere arrain-olak ditugu. Eta arrain-oletan gizonak eta emakumeak egiten dute lan. Gaur, emen, emakumeetzaz ariko naiz, Oneik, zortzi, bederatzi, amar eta amaika orduetan diardue lanean. Lan-jasoten dituztenak: zortzi ordu eginda, eun ta irurogei laurleko; bederatzi ordu egiten dituenak, eun ta larogeitamar; amar ordukoak, berreun ta ogei; eta amaika ordu beteten dituenak, berreun ta berrogaitamar laurleko.

Emen ulertzen da, emakume bakoitzak ogei laurteko orduko jasoten dituala zortzi ordutan jardunda. Ortik aurrera, au da, zortzi ordutik gora lanean jardunda, ogeitamar laurleko orduko irabazten dute emakumeok. Ba-dituzte baita osagilleak eta osakaiak, oneik, zeozer ordainduaz; ba-dituzte baita goitik jarritako beste onure batzuk be, esate baterako Garil-amazortzikoa, Gabonetakoa, ordaindeta berezi orrek. Onek, emakumeen alogeratik at daudenak dira.

Onez gaiñera, emakume-langilleak gure erritik at, erbestean diranean, jaba edo sabel betealdia ugazabak ordaindua, ta sabel-aldia nai ez dutenak, ordezko txanponak jasoten dituzte ugazabaren eskutik. Jaba edo txanponak zergaitik? Au arrain-oletako ugazabak jakingo dabe.

Orain arte aipatutakoak, ongi izango dira bear bada emakume langilleentzat, baiña aspaldion neuk entzundakoak ez dira ondo nere ustez, oker ez ba'nago, ara: Arrain-oletako emakumeak ez dituztela bear diran Bilbo'ko idazkaritzetan jakin erazten, edo izena emoten lenengo egunetatik. Nork egin bear dau izendatze ori? Jakiña, arduradun ugazabak, euren eskuetan dabe ardurea-ta. Noiz egin bear dabe ugazabak izen emote ori? Oker ez ba'nago lenengo egunetatik. Zergaitik? Arrazoi onetxegaitik: emakume langilleak gaixo txar batek joten ba'ditu (oba ez baiña) gaixo-dirue jasoteko eskubidea izan dagien. Gero, zaartzarako txanponak geituteko ta jasotzeko bear dan lekuan.

Begira neuk jakin nebana, arrain-ol baten jazoa: Emakume langillea lanean urteetan zear ibilli zan, eta 65'gna eldu yakonean bizkar gaiñera, asi ei-zan idazten ingiak eta ingiak, argitasunak egiteko, eta zer jazo yakon? Joan zan zaartzarako langille dirue jasoteko asmoan ta an, erantzun auxe emon eutsen: «Oindiño beste urte bitan jarraitu bear dozu lanean». Andreak, idazkaritzan egoan morroiari: «Zergaitik?» Eta morroiak andreari: «Emen ez zaralako agertzen zuk diñostazun garaian arrain-olean lanean asita ziñanik. Ta nai ba'dozuz, oraindik, zaartzarako txaponak jaso, ogeitabi milla laurleko eralgi bear dituzu».

Andre-lagille orrek ez ekianez zenbat urtetan biziko zan, 22.000 laurlekoak eralgi bear izan ebazan. Bereala asi zan zaartzaroko dirue eskuratzen, baiña azkenean eralgi bear izan ebazan diru orrek, eurok, jasotera eldu baiño lenago, Jaungoikoak deitua izan zan (G. B.) ta bukatu zan dana. Ugazaba batzugaitik, langilleen errukarria!

Arrain-oletako emakume-langilleak ba-dituzte eurena zaitzeko emakume-aldezleak, baiña oneik ez dira benetako aldezleak; neuk entzun nebanetik diñot. Ta ez ei dira banetakoak, ezer egiteko ugazabaren bildurrez izaten diralako. Gaur edo biar zer jasoko danaren bildur.

Ugazabak eta biargiñak, bakotxaren eskubideak eta egin-bearrak ditugu, ta bakotxarenak zaindu bear ditugu, baiña besteenak aaztu barik, giza-bizitzako zuzentza or da-ta. Garizuma Santuan gauden ezkero, sartu gaitezan zuzentzazko bidera, bide bakarra ta bikaiñena da-ta.

BERMEOTAR BAT

MARKIÑA ALDETIK

AMA, GAUR BE ESKOLARA...?

«Pi»... zer dok...? Jeometrixen ordue dala-ta estu eta la rri danok.

Gure gazte denporak, ume sasoie, oiñ berrogei urte inguruko bizi-zati au.

—A ver, chicos, Piiii!

Zer ikusi b'euken, bai, Sumiña'k, Altza'k, Abixu'k, Makotei'k, Bolu'k eta danok ipiñi zitxuen arpegi erak.

Larogei ume edo geixa gitzen. Aurrez, maixu geixo eta makal. Gisajue, sama okerra zan. Geixuek, ganera, gogortu otsen burusamako jokue. Aurrera begire ba'zan, atzerutz egiteko, korputz guztiaz bier.

Don Zizilio, izenez; da, jakiñe, erdalduna, izetez.

Gisajo, ona, iru egun ondo, laugarrena gaizki.

Bere buru koxkorraz naiku zeregiñ, ia da larogei ume eta inguru saiñ da, apaiñdu be bier...

—Piiii, qué es! Barrido garrasi, alarau, inkesa, arnasa estuz, barrido be:

—A ver, chicos, piiii, qué es...!

Abixu'k, liburu zaar orri-apurtu bat eukan esku artien, astarka, artaska... Enxikplopedia izenez uste dot.

—Emen dok, piiii. Altza, emen, ara emen! Ikusten dok, piiii 3, 1416...

—Esan ziok, ba...

—Euk, esan, Altza.

Batak ez, ezta bestiek pe, eziñ esan erderaz.

—Ekarri dek liburu ori...! —Sumiña'n eska bidie zan.

Joxe Mari Sumiña'k bai bestiok pe zerbait letra-lumerotan ba-ekigun Joxepa Antoni'k, iru edo urteko ume koxkorrak gitzanien an bere eskolan erakutsi oskune euskeraz, Txarratatillera-kiñ bizi zan etxien, Itxu-lapikon bigarren alderdixen.

Sumiña, Joxe Mari, jaiki da. Zutunik, gorri, gorri belarri onduok, zotiñ baten, diño:

—Iru, amalau, amasei; Iru, amalau, amasei: Iru... D. Zizilio'k, dardaran, ernegau eta zorrotz:

—Basta! Al recreo todos...!

Au zan eguneroko jokue. Gogortu, astotu, ta atzenez goiz alderdi galanta olgetan. Gure jolas onek be, alkarri lepotik eldu ta idi-bei buztarri lez gora eta bera... Eziñ beste aldik egiñ. Errue aundixenetaikue baten batena. Ez D. Zizilio'na, ez gurie... Esku baltza, beti gure ume buruz gaiñ. Mirue edo arranue txitxa txikiñen gaiñ lez... Urtiek aurrera, jakiñ guran baiña eziñ, eziñ ezelan be, ikesi ezer. Pareta lodixe ta aundixe, erdal-euskal, pareta au bitartez beti sortze zan.

Bolu, nire mai lagune zan eskolan. Ogi egintzallean semie. Origaitik edo agaitik, bai mutil ederra, oso ederra. Amar urte, irurogei killo inguru. An gure aurki-maixen sartzeko estu benetan ibiltze zan. Bere beso lodi gogorrakiñ, egazka, egazka. Zenbat saietz azpiko eder artutekue nitzen... Itxo aurretik zozer esan egin bier...

—Maistro, este mestá «sakando...»

—Qué te ha sacado...?

—El ukondo!

Egunerokotik be sarri, sarri, ekiñ aldi gogorrak erabiltze guzan.

Egun baten be, D. Zizilio, neuri begibegire jarri zan, bere antiojo baltzak zur puntan, papera aixetute aurrez zala.

Egun aretan beste gauza askon arte, ekarren itxasoko miñgarri barri bat: Naufragio en Bermeo.

Neuk beintzet, ez nekixen zirkiñik be. Naufragio zer zan..., Bermeo nun zan, erri soñua dala, bai...!

—A ver, Arrizabalaga, Naufragio en Bermeo, qué significa...!

—Por Balentzia está...

Izerdi otzak, dardara itzelak, lotsa, ikera, zer ez, nire korputz aldi guztiz. Geixotu bai, benetan. Nire amak zenbat «orixo-gibelmakallau» sartzen erostan. Bier be bai. Onek estu-orduok egunero, egunero jokatu bier. Ikesi nai, ikesi eziñ, esku baltzan pareta... ta amalu urtekin, kanpora...!

Eskerrak ama, eskerrak aitxe. Or zagos Zeru ederrean bixok. Orrutz begira, gora begira, diñotzuet beti: ESKERRIKASKO. Izen zarie beti Paret lodi ganetik zubi gogor eta zintzoa. Zubi onek eruen gaitxu umetatik gizon egitera.

Amaitzot. AGUR'a bota eran, onek gausok, irakurri aurrez, ez esan iñori, baiña, gizona izen arren, negar egin dot.

J. J. ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

Apartado 1.510 **BILBAO**

Izen - abizenak .....

Bizibidea ta lana ..... Urrutz .....

Zuzenbidea ..... Urrutz .....

Erria ..... Eskualdea .....

Bidali egidazuz arren reenbolsoz jasotzerakoan ordaintzeko / illeroko amabi epetan ordaintzeko (1)

- ☐ AZKUE'REN IZTEGI NAGUSIA (Ale bi)
- ☐ LABAYRU'REN BIZKAI'KO EDESTIA (Amar ale)
- ☐ GOROSABEL'EN GIPUZKOA'KO JAKINGARRIAK (Lau ale)
- ☐ AZKUE'REN EUSKAL ABESTI TXORTA (Ale bi)
- ☐ EUSKALERRI'KO EDESTI-LUTELESTI IZTEGIA (Ale bi)
- ☐ LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA (Ikusgarriz betea) (Amar ale)
- ☐ R. I. E. V. Euskal ikasketen bildumea (26 ale)
- ☐ MORET ETA ALESON'EN NAPARROA'KO EDESTIA (Zortzi ale)
- ☐ KEREXETA'REN ARMARRI TA IZENEN IZTEGIA (Lau ale)
- ☐ EUSKAL GIZA-IKASKINTZA (Erriarteko lenen...) (Ale bat)
- ☐ GIARD'EN BILBO'KO EDESTIA (Lau ale)
- ☐ MOGEL'EN PERU ABARKA (ele bitan) (Ale bat)
- ☐ GARMENDIA'REN ITXAS IZTEGIA (Ale bat)
- ☐ CALERA TA BUSCA'REN EUSKAL SUKALDEA (Ale bat)
- ☐ BILBO'KO ATHLETIC'AREN EDESTIA (Ale bat)
- ☐ LAFITTE'REN AZKUE-IZTEGIARI EZARKETAK (Ale batzuk)
- ☐ Euskal Jakintzadun idazti onein edo batzuen barri nai neuke jakin bakarrik.

OARRA: Idazlan bakoitzetik ale guztiak erosi bearko dira, ta ez da onartuko bakoitzetik ale banakak erostea, eskatzean ez ba'da bestera azaltzen.

NOIZKOA: IZENPENA:


(1) Zear-marratu nai ez dana.
Illeroko ordainketak ezin izan 200 laurlekotik bera.

Euskal erriko gizon ospetsuak

GAYARRE

Erronkari'ko abeslari euskalduna. Auiñamendi inguruko bizitoki zoragarrian, XIX gizaldian jaio zan. Goizargi eder garbia zabaltzen dan antzo, nunai entzuten omen zan, Gayarre'ren izena.

Euskalduna, beti abeslari izan dalarik, Gayarre, aipatuenetako bat izan da. Ez emen euskalerrian bakarrik, ludi guzian baizik. Aren abestıen oiartzunak entzuleak esnaturik, inguruko gizadien biotzak poztu ta alaitzen zekien abeslaria.



Gizona ez du jan-eranak asetzen, gose-egarrik beste zerbait eskatzen dularik, gizonaren biotzaren asegarri oietako bat, abestia dugu.

Gayarre 1869'garren urtean abesten, Varesen'n asi zan, eta zazpi urte geroago 1876'garren urtean, Milan'go Scala'n aurkezturik arrakasta bikaiñ bat eskuratu; ludi guzian, abeslarik onena bezela ezagutua izan zan.

Milan'go Scala'n 1876'garren urtean mundu berri bat sortu zitzaion. Donizetti'ren «Elisir d'Amore» eresantzerkian, «primo tenore» aukeratua izan zan. «Una Furtiva Lacrima» ots-aundiko abestia danez, berak bakarrik abestu bear bait-zuan, eta ala bearrez, iñork pentsatzen etzuana gertatu zan. Bere lengusoak, urrut-idazkia biali zion esanaz: «Julian ik aiñ maite dukan ama il zaik». Gero gertatu zana, pentsa genezaken gauza da. Gayarre'k bere biotzean zeukan atsekabe ta naigabe-samiñarekin, goientsu ta ezin-obeto gisan abestuaz, entzule guziak txoraturik zer esan etzakitela utzi zituan. Gerora urte batzuk igaro ondoren, esan oi omen zuan: «geiago ez dut gau artan bezela abestuko».


Gau illun artan naiz eta biotzaren erdian atsekabea nabaitu, ta malko samiñak ixuri bear izan, gau uraxe izan zan, Gayarre'ren asiera. Ogei urte geroago ia ludi guziko antzokietan abestu zularik, arrakasta aundiak eta aunitz jaso zituan.

1876'garrenean, San Petersburgo'n «La Favorita» abestu zuan. Gero, Erroma'n, Bolonia'n, Palermo'n, Moscou'n, Viena'n, Buenos Aires'en, Londres'en, Paris'en, Lisboa'n. e. a.

Zaldibar'en ere abestu zuan. Gaxorik aurkitzen zala, urastegitik goizetan, mendi-aldera irteten omen zuan. Egun batez beti bezela zijoalarik, prailleak txiki bat inguratu ta alkarregaz berriketan ari zirala, prailleak begiratu eta esan omen zion: «Ba-dakit zu, nor zeran; zu, Gayarre abeslari ospetsua zera, ta egia esan, abestiak oso gogoko zaizkit, baiña tamalez uri aundietara ez daukat joaterik, eta etsita nengoan, zure abots ederra entsuteko zorionik ez nuala izango».

«Baiña urastegi ta maiñu-etxean dauden gizon eta emakume aberats oiek abestu-eraziko dizuela ikusirik, nik ere, entzuteko era izango dutela itxaro dut. Ba-dakit eurentzat abestutzeko alegin guziak egiten dizkitzuela, ta zuk ala ta guztiz ere, ez diezula batere jaramonik egiten, baiña zer egin! pazientzia bear noski.

Praillea ixildu zan beziñ azkar, Gayarre'k erantzun omen zion: «Urasategian dauden gizon eta emakume



oientzat, ez dut abestuko, baiña bai zuretzat! Biar bertan etxe onatako areto-nagusian, biok bakarrik atea itxirik, zuretzat bakarrik abestuko dut».

Eta alaxen, esanda bezela, urrengo egunean abestirik zoragarri ta diztikorrenak, prailletxoari eskiñi zizkion.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

«ITZAK, ITZAK, ITZAK»

(Shakespeare)

Guztiok dakigun gauza da, gizonak bere idekoagaz artu-emonetarako erabilten daben biderik berezko ta egokiena itz-egitea dala. Itzen bidez gure oldozkunak, barruko asmoak eta gurariak agertzen doguz. Onek ez dau esan gura, beti ori gertatzen danik, baiña bai gizonak orixe egin bear dabela, benetako gizatasunaren yabe izan gura dabenak beintzat. Euskeldunok, onetan zintzo, entzute ona izan dogu, eta ortik dator esakun zar au; «Gizona berbatik, ta idia adarretik». Eta entzute ori geure artean eta erbestean be izan dogu. Ointxe be, Ego Amerikan euskeldunak emondako itza zin egitea bste dala esaten dabe.

Tamalgarria da, baiña gaur orrenbeste esan geinkenik ez dot uste. emondako itza betetan ez dabenak ugaritxo ikusten dira-ta. Beiñola Tayllerrand ospetsuak esan eban kirtenkeria ez dogu esango, au da: Gizonari itz-egitea emon yakola bere oldozkunak estaltzeko, baiña or gure inguruan sarriegi ikusten dala egia da. Eta ortxe dago gaur gure artean be, alkarrenganako ustea galtzearen zusterra. Gauza bat buruan ta ezpanetan beste bat darabillenen artean, gizartearen oiñarriak lokatu egiten dira, alkarrenganako ustea galtzen dalako. Orduan Hamlet'ena burura etorten yaku: «Itzak, Itzak, Itzak».

Kalte Geyago Egiten Dabena

Baiña itz-utsak egiten daben kaltea baiño andiagoa egiten da, itza esanguratik ustu ala beste esangura bat emotean. Ori intxaur-oskol utsa lez izango litzake, ala txarrago, barru usteldua. Ez da oingo gatxa. Edestian gizaldiak-zear gitxi asko beti gertatu dana da. Baiña gaurko aurrerapenakaz, gizonen arteko artu-emonetarako bideak izugarriro ereztu diran ezkero, batez be irakurgai irrati ta urrutikustin edo telebistagaz.

Indarkeri zaleak, eta gizonaren eskubideak aintzat artzen dituenak, itz bardiñak erabilli arren, esan-gura bardiñagaz ez ditue erabilten, eta ortik sortzen dan nastea ta aitu-eziña, gizonen eztabaida ta artu emonetarako gauzarik kaltegarriena dala egunoro ikusten dogun gauza da. Benetako ta guzurrezko diruaz gertatzen dana. Azalez alkarren antz andia izaten dabelako bata besteagandik berezi eziñik ipinten gaitue eta alkarren artu-emon zintzoetarako orrek dakarzan kalteak aitatu bearrik be ez dago.

Gauza bakotxari bere izena

Gauza bakotxari esakereak diñon lez «ogiari ogi ta ardaoari ardao» deituko ba'litzako, alkar-aitu eziñik ez litzake ikusiko. Alkar-aitu ezin ori, batez be naspil eta gudaldietan, arroza uretan lez, asi ta anditu egiten da. Ingalandarrak esaten dabe gualdian lenengo ilten dabena, egia izaten dala. Baiña «bakea» eginda gero be oitura txar orrek yarraitzen dabela ikusten dogu. Orrek gauza bat adirazoten dau; azaleko bakeaz batera barrukorik ez dala egin, eta alderdi bietan itz bardiñak erabilli arren, esangura bardiñagaz ez dirala erabilten. Au egiztuteko ez da buru-auste andirik bear. Idazki ta esan guztietan, itz eder asko irakurri ta entzuten doguz: *egia, bakea, azkatasuna, anaitasuna, zuzentasuna, erri-agintza, gizonaren eskubideak* eta orrein antzeko zenbat gura itz eder. Garbian, gauza ederorrein aurka, iñork be ez dau agertu gura izaten.

Gaur egunean ainbeste aitatu ta goraltzen daben zintzotasuna benetakoa ete da? Nik ez neuke bayetz esango. Zintzotasuna sarri entzuten danean, guzur ugari dabillelako izan, ogia sarritan aitatzen danean urri dabillen ezaugarri izaten dan lez.

Orixe dala-ta, egoki deritxogu, itz ederrok banan-banan aztertu, euron esangurea azaldu, eta guzurrezko esangurak agirian ipintea, gauza bakotxari bere izenagaz deitu ta itz bakotxagaz zer esan gura dogun, guztiak ulertzeko eran. Orrexek dirudi gaur ainbeste agotan dabillen batasunera eltzeko biderik egokiena.

GAMA

AURRERAPENA KALTEGARRI?

Danen gaiñean gizona ikusi nai leukela diñoenak (zeiñek ez dau ola nai?) makiñearen indarra artzea begi txarrez ikusten dabe. Makiñea gizonaren serbitsurako izan bearrean gizona dagoala makiñearen morroi jarten. Ta ori dalata gizonaren etorkizunari buruz kezkatsu dira.

Gauzak guk baiño sakonagotik ikusteko gauza diran jakitunen eretxi, esate ta kezkok izango dabe arrazoia kontixu. Baiña auzi au edonork be bere maillatik ikusi daiteke ta eretxiak izan. Ez jaku kontu au, esate baterako, izarren kontua baizen eldu eziña, ez da guretzat galerazotako sailla.

Makiñeak bere alderdi okerrak izango ditu kontixu, baiña bai onak be. Len ez zan makiñarik. Ta zelan bizi zan gizadia? Gaur makiñen bidez egiten diran milla lan neketsu, eskuz egin bear.

Ta ez orain lez astean berrogeta zortzi edo gitxiago ordu, udan be izarretatik izarretaraiño baiño. Ta lan ta neke guztiakaz be ezin bizita, gosez, zarpaillez jantzita, ez eskola ta ez kulturarik, askotan a be zer zan ez ekiela, gaur be munduko toki askotan diran lez.

Bai, subdesarrolloan dagoazan eta bertatik ataraten alegindu bear giñaken errietan, Aprika'n, Asia'n eta Ego Ameriketan ez dago makiñaren nagusitzarik. Ain zuzen makiñeriak, tenikak, soillik atara al izango ditu erri orreik euren ezin bizitetik.

Ala, makiñea ta tenikearen bidez aurreratu diran errien bizimodua baiño gosez ta gaixoz beterik dagoazan beste erri orrein bizimodua obea ete?

Egia, gizona ez da urdailla edo gorputza bakarrik. Ta makiñeriak bere gorputz bizitza erosotuta be, gogo bizitza atzeratu egingo ba'leutso, bere aurka egoteko errazoi barik ez giñake izango. Baiña tenikearen bitartez aurreratu diran errietan oraindik atzeratuta bizi diran errietan baiño geiago emoten jako gogo bizitzari; kultura geiago dago erri aurreratuetan, arte geiago.

Besteak beste, orretarako asti geiago be ba-dago. Gaur egunean zortzi ordu dira laneko denpora; emendik berrogetamar urtera bear bada lau be ez dira izango. Lantegian eta makiña aurrean gizonak egunean igaroko daben denpora gauza utsa izango da ta edozertarako astia izango dau; atsedendu, irakurri, kulturaz jantzi, jolastu ta abar egin al izateko denpora izango dau. Dana, makiñeari esker.

Benetan diñot, ezin dodaz ulerto gaurko milla kontu ta auxe be ez. Atzeratuta bizi diran erriai lagundu bear dautsagula, euren ezin bizitetik aurrerabidera aldatu daitezen alegindu bear garala dei larriak egiten dira, ta beste aldetik, erri orreik gizonari dagokion bizitzara eroateko bide bakarra dan tenika edo makiñeria ez dabe onartzen.

Ba-dakigu, gero, zer nai dogun? Makiñeria, tenikea ta aurrerabidea gauza bat dira. Ta makiñeria ta tenikea baztartu nai ba'doguz ez dogu nai soillik ola andiak kentzea edo bideak betean dabiltzan beribillak baztartzea (ni bizikleta zar baten jaube naz soillik lantegira joan etorria egiteko) baita be baztartu nai doguz, gaxotetxe aukerakoak, gaurko sendakintza aurreratua, ikastetxe, unibersidade, obserbatorio ta olakoak, bide zabalak, bultziak, egazkiñak, janari ugaritasuna ta gizadiarentzat on diran milla gauza.

Tenika ta makiñeriaren alde agertzen ba'naz (alde edo) ez da erosotasunez gaiñezkako bizitza materialistearen aldekoa nazalako, errialde askotako txirotasuna uxatzeko bidea orixe dalako baiño. Nik neuk gitxi bear dot biziteko. Baiña gauzak diran lez esatea jat atsegin ta ez giroaren joerari jarraituaz gauza bat zeruraiño jaso edo inpernura bota. Edozer gauzak ditu, geiago edo gitxiago bere alderdi on ta txarrak. Orregaitik alderdi biok kontuan artuta itz egin bear da.

ETXABURU'TAR J. M.

AGVR

III URTEA
36 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - JORRAILLA - 29

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

MAILLAK

Izaeraz eta gorputzez antzekoak eta eskubidez bardiñak gizon guztiak izan arren, gu geure artean maillak egiten zaleak gara. Edo jakituria ezbardiña dala, edo gorputz-azalaren margoa dala, edo dirua dala, batzuk mailla baten eta beste batzuk beste baten jarten gara: aberatsak eta txiroak, baltzak eta zuriak, jakitunak eta ezjakiñak... Baiña erlejiñoa bera be maillagiña izaten dogu. Eta, gaur-egun, lana bere bai; au dala ta, iñoren izerdiz bizi diranak eta euren izerdiaren onurea artzen ez dabenak agertu dira.

Gizonaren norberekeriak beti mailla oneik sortu ditu: Aigipto'arren artean abadeak, jauntxuek eta erria; Greziarren artean «ilotak» (morroiak), «periekoak» (salerosleak) eta erritarrak; Erromatarren artean morroiak talde bildurgarria ziran eta jaunen eskuetan egoan euren bizia, euren ondasunak eta eurena dana; erdiaroan, jaunak eta «vasallo»ak antzera; eta gure aldietan, ugazabak eta langilleak.

Mailla onein artean burrukea izaten da. Batzuetan agiri-agirian, beste batzuetan ixillean, baiñi beti burrukea. Guk bakea gura geunke, baiña mailla oneik bardintzera joateko gertu ete gagoz?

Begiratu dagigun geure ingurura ta, lantegien aurrerapenak dirala ta, ondo nabarmen agertuko jaku iñoren lepotik bizite au. Eta onelan ezin burrukea baretu. Ondasunak, lanaren arnariak zuzentasunez banantzen ez diran artean ez da bakerik gizartean izango, eta agiriko bakea egiten ba'da be, bake txarra izango.

Batzuk, urtenbide lez, lantegiak gizarteratzea ipinten dabe. Baiña gizarteko erakundeak zuzenak ez diran artean, gizona erri-agintaritzarako gertatu barik dagon artean, lantegiak gizarteratzea menperatze garratzago bat artzea izango da. Or dago ba arazoa, gizonaren eziketan, gizonaren norberekeria kendu ta gizarte-zaletasun benetako a sartzean.

Bide luzea zuzentasunerantza egin bear doguna. Eta oztopoak asko.

Eta zein bide artu geinke banantze zuzena egiteko? Jokabideak era askotakoak izan ledikez, baiña bitara ekarri geinkez: Aurrerapidea ta iraultzea.


Aurrerapideak gaurko aldietan negar gitxiago eragingo dautse batzui, baiña zapalduta dagozenentzako epe luzea bear dau, batez be astiro ibiltea gura dabenak asko diran artean; egoera onetan ondo dabiltzanak, jakiña.

Iraultzeak, ostera, neke asko dakarz eta ondo urtetako itxaropenak gitxi dira geienetan.

Zer egin? Gitxienez, aurrerapideetan arduratsuak eta ekintzailleak izan bear dogu guztiok, bearrezko diran aldakuntzak egiten alegindu bear gara. Eta iraultza osoa geure eskuetan ez ba'dago be, al dogun neurrian gizarte au obetuten ekin bear dogu. Gogorkeririk ezin geinke onartu, baiña bear dan neurriko gogortasuna bai. Lenengo geure jokera txarrai aurka egiteko eta gero ingurua obetuteko.

Al dogunik eperik laburrenean eta alegiñik aundienaz gizartea zuzenbidera eroan bear dogu, ondasunak bear dan lez banandu, nekeak arindu, erriak askatu ta aurreratu. Artu dogun baiño txarragoa dan gizarte bat ondorengoai izten ba'dautsegu, kondairearen aurrean errudun izango gara.

AGVR



Ludiko Langintza Alkarte-etxea; leio aiña buruko min.

MALTZURKERIA SALATU BEARREZ

Idazlan onen asmoa ez da zintzoki lanean diarduten oien aurka joatea; iñolaz ere. Au aurretiaz diot, baezpadan, gero aipatuko dudan arloan sendo jokatzen duten gazte oiek gaizki ar ez dezaten. Nire asmoa goian diñotan bezela, maltzurkeria salatzea da.

Aspaldi onetan, ikastaro onen zear batez ere, zenbait gertaera nabarmen dugu begien aurrean. Eta orregaitik gertakizun oien azaltzeaz asiko dut lan au.

Izparringiek komeni etzaizkien albisten berri eman ez arren (bazterren baten letra seiaz zertxobait noizipein izan ezik), guztiok gagoz jakitun Unibertsidadeko iskanbillek sorrarazi duten astrapala guziarekin, opor aldartetsuak direla batetik, batzarrak direla bestetik e. a. Estrukturekin bat ez etortze au Bilbo'n ez eze beste toki askotan ere nabari da. Asarre au; ikasgai garrantzitsuago ta peto geiagoko batzuen aldeko borroka au; gaurko munduari ta bizimoduari komeni ta arduragarri zaizkion ikaskera barri batzuen aldeko ekintza au, itz biuan laburtu daiteke, ots, iraultza baten gogoa gizartearekiko ainbat arlotan.

Beste alde batetik langiledia dakusgu bide barrien alde jokatzen, sozialismo bidean, berdintasun jokabide baten xuxuan, kontzientzia barri bat lortu naiez; emen ere beste orrenbesteko jokabidea: iraultza gosea.

Aipatu ditugun gizaera bietan, sarritan joera berdin xamar bat agiri da; bietan dago ideolojia zeatz baten (ala batzuen) eragiña. Batetik, langilleek euren maillaren kontzientzia bat artu naiez, ta bestetik ikasleak edo beste era bateko gizonek kontzientzia orretaz jabetu ta beste batzuek jabetu daitezen lagunduaz.

Baiña gauza bat gertatzen da, arrigarria noski: Ikasleak, Unibertsidadean diranak, esan nai dut, geinbat jatorriz burgesak dira, eta beste asko jatorriz izan ez arren, bizitzaz oso-osorik. Leen begirada baten uste izan dezakegu, ea nola jokatu lezateken burges oiñarrien aurka, euretatik ainbat barna egonik. Argi ta garbi dago, orraitio, ezin duela egiazkoa izan jokabide orrek, osoan arrurik beintzat. Euneko bospasei baiño asko geiago ez nituzke ipiñiko benetako zintzotasunez eta siñiste osoz diardutenen artean, euren burutapenen jarraitzaille izanik. Onek naikoa argi egiztatzen du Unibertsitario gazte askoren aitorpena ez dela egiazkoa, utsa baizik.

Dato batzukin aski azaldua geratuko da esan nai dudana:

—Italia'ko Komunista Alderdia burgesek osatua dago % 60'ean.

—Antzerki-kritikuaren ikusleak burgesak dira iya guztiak.

—Abeslari protesta askok arrera obea du Club edo Dantza toki dotore ta aundiki baten gaztedi burgesa dagoen lekuan, langilledi artean baiño.

Guzti onek adierazten diguna auxe da: Burges jendeak arrera obea ematen diola gauza garratz eta kritika kutsukoari beste edonork baiño. Zerbait ondo eztabillenaren ezaubide. Folklorismo antzeko baten jausi dela esan liteke langillearen interesa, kezka; artea folklore biurtu dela nabari da.

Alde batetik ba-liteke onen arrazoia kultura mailla altuagoarena izatea, langilleak ez du orrelango aukerarik izan-eta. Baiña bai argi dago beste alde batetik benetako asmoa, maltzurkeriz, jolasgaillu bat izatera biurtu da.

Sarri askotan burgesak bere lillura bizitzan arrazoi ta maitakeri guztia proletarioari ematea, gurasokeri utsa da, zapalduaren babesle ta aita bezela izatea, ain zuzen ere an urrutikoak dira nonbait langillea zapaltzen dutenak-eta. Paternalismo delako au faltsokeria utsa da, benetako bearrak orioarekin leunduteko era bat, samintasuna oial leunarekin arintzea. Eta ori langilleari arpegira txistua botatzea baiño ez da; langillea bera da naikoa-ta, bere burua jasoteko, besteren laztankeri gabe.

Oporren bidez euren burua zuritu naiez dabiltzan ikasle oiek; teorian asmo politak dituzten guzti oiek; euren burua zapaldutzat duten guzti oiek, naiz eta euren ekintzetan iñon direnik eta burgesik aundienak izan; oiek guzti-guztiek langilleari adarra jotzen ari dira. Euren burua langilletzat euki, langilleen klasekotzat (teorian noski), eta gero neskatxarekin Bilbo'ko kafeteri arroenetatik zear dabiltzan guzti oiek (dirua franku poltsan), proletargoaren samiña oial leunakin ibitzen ari dira, aren beltzunek (lanaren lanarekin urtenikoak) igusi guriekin arintzen. Jokaera ori, ezer izatekotan, langillearen benetako interesei irain egitea da; maltzurkeririk maltzurrenean murgildurik, samin gorri ta larrian direnekin folklorea egitea (modan omen dago-ta). Gizazale on bezela, orretara zuritua bai dago norberaren burua, fariseoek ere itxura berdiñez zuritzen zuten euren bizikerea-eta.

«Hijos de papá» delako guzti oiek proletargoaren odol apurra xurgatzen ari dira. Goizean Unibertsidadera zalapartan (eztakitela zergatik kontixu) eta illuntzean «Pozas» inguruan gozamen osoan, neskatxa besapean dala, goizeko gertakizun edesgarriak kontatzen, edari gozatsuak miazkatuaz. Balientea ta bulartsua, gero, mutilla!

Zintzotasunik baldin ba'dago munduan oraindik, demagun beintzat burgesak garela, ondo bizi garela paltrikeran dirua franku darabilgula, itz baten, langillediarengandik zearo interes ezberdiñak ditugula. Sikeran askoz geiago balio du-ta ori ontzat artzeak, geure burua ta beste batzuen burua engaiñatzen jarraitu gabe.

Unibertsidadea adibide soil bat bezela ipiñi dut, neuk bertakoekin beste leku batzukoekin baiño artu-eman geiago bai-daukat. Baiña gogoan artu, iñondik iñora ere enoala aurka, Unibertsidadeko gazte eskas bulartsu oien ekintza gaitzetsiaz; euren buruera bizitzara eraman nai duten edo alegintzen diren gazte guzti oiek biziro txalotzen ditut.

Txalogarriak gazte oiek, ez jasan bear dituen arrisku guztiegatik bakarrik, baita baiez ere ba-dakitelako duako lana egiten diarduela, eurentzako probetxurik gabea. Ez da iñolaz ere gizartean gaillurrera eltzen dana bere sistemaren alde lan geien duena; sistema aldaketatik etekiña ta irabazpidea ateratzen jakinten duena baizik. Izan ere, zintzotasuna eta benetako norbere izatearen eskeintza osoa, beti izaten da baten batzuek gurutzeratua. Egia billatu nai duena, ez da sekula goien jartzeko izango, bai ostera giltzaperatua ta zigortua izateko.

ARANGOIENA

EUSKALDUN FEDEDUN

ALA EZ?

Ba-dakit gai oni buruz zeozer esatea lur labanean ariñeketan ibiltzea bezelakoa dala. Itaun orrek gaiñera, beste batzuk dakarkiguz, batak bestea, alkarren ondoren: Zer da fededun izatea? Esan geinke euskaldunak fededun izan diranik? Euskalerria euskaldun iraun dauan bitartean, fededun izan da? Zenbat gara «euneko»etan euskaldun eta zenbat fededun? Zelan aldatu da euskaldunen fedea? Zergaitik? Gizalde onetan sartu yakuzan siñistera arrotzegaitik? Lengo euskaldun siñestunak zintzoagoak ziran? Gaurko gazte euskaldunak bai ete federik?

Eta onela luze joan geinkez itaunka, baiña ez da ori gure asmoa, ta erantzun bat emotea gitxiago, ez gara ba laprats egiten ibiltzearen zale. Baiña zerbait esatera ausartzen ba'naiz, egun batzuk dirala Bermeo'ko gazte batekin izan nuen alkar-izketeagaitik izan da.

Gure erriko alkarteari buruz jardunean gabiltzazan eta arek iñoanez, gaur ezin ei leike «euskaldun fededun» ori egitzat onartu. Asko ei dira, euskaldunen artean eta batez be gazteen artean, erlijioaren lokarririk nai ez dabenak, baita beste batzuk, gitxi izan arren, ososorik aurka dagozanak be. Gizarteko alkarteak esku-zabal eta biotz oneko, zeintzuk diran eta zeintzuk ez diran... eta onela luzaro jardun gendun, lagunarteko eztabaidan.

Ez dago dudarik, fede aldetik, Euskalerriko giroa ososoan aldatu da. Aldaketa onek, sartu yakuzan ainbat mito gaizto ta ganorabako lokarri, beti-betiko lurperatu ditu; gure bizi-moldeak eta kristiñau izakerea berean ulertu ta gaurkotuaz. Egizko maitasundun siñesmena lortu naian dabil borondate oneko ainbat errikide. Lortuko ete-dogu iñoiz olakorik?

Baiña aldaketa onuragarri oneikin batera, satorrarena ez ete datorren bildur naiz. Eta beste alde batetik, azken berrogei urte onen barruan Euskalerriko biztaleak ugaritu dira, baiña ez erriko semeengandik sortutakoekin, erbestetik etorritakoekin baiño.

Eleizeak egin dituan azterketa-enkuestaetan argi ikusten zan fedeakin batera euskereak berak egin dauan atzerakadea. Eta ba'litzake azken urte oneitan fede bako euskaltzaletasuna sortu izatea... ondorenak ikusi arte ori dirudi beintzat.

Zergaitik guzti au? Ez da erreza erantzuna ta gitxiago laburra. Itz gitxitan korapilloaren muiña azaltzeko, bear bada, goi maillako eleiz-gizonak agintaritzakin izan dituen artuemon eta lokarriegaitik. Baiña luze ta gatx litzake bear bezela aztertzea.

Kontuak alde batera, emen gara. Zer egin bear? Aldanik zintzoen egiaren alde jokatu; egizko kristautasunaren alde, iritzi ezbardiñekoak errespetatuz... baiña kontuz! Ondo dago edozein ondo artzea, baiña ez gure toki, aldizkari, jolas-leku, irakas-eskubide eta abar erlijioaren aurka dabiltzanen eskuetan iztea. Gureak erdi-bana, eurenak eurentzat... Ori ez litzake iritzi zabalekoak izatea, geldoak baiño... to onelako askotxo doguzala uste dogu.

Ez dira egun asko, «Jainkorik eza zientzia modernoak demostratu du» gazte baten ezpanetan entzun gendula. Beste arrazoirik ez ekian, baiña ori esan ei cutsen espetxean. Ta gu olakoen aurrean egia agertzen alegindu bear gara, naizta alperriko barriketa-aldietan ordu asko galdu.

Ez dakit nik gure etorkizunaren barri. Gure gurasoen fedepean ba-dakigu zelako eziketea izan dogun, eta gure erriak errizale giroa ezagutu, naizta izan ez guk nai izan gendun neurrian. Fede bakoena, ikusteko dago oraindik, baiña ain erakusgarri diran txinparta apurrak ezin izan itunagoak: Fedearengandiko errizaletasuna galtzen doa, naizta «galtze» ori internaziolista guztien batasunerako ongarria izan. Guretzat ez baiña! Iñolan ez!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Idazti barriztugarriak

PRONTUARIO DE LA LENGUA VASCA

1917'gn urtean argitaratu eban, berak, AZKUE jaunak itz aurrean diñoanez, Bilbo'ko Institutuan zuzentzen eban euskal-ikasketara etozaneri laguntzeko. Guk, 1932'gn argitaratu zan bigarren agerraldikoa darabilgu emen esku artean, baiña emen agertzen dan idazti onen eskeintza, lenengo ari jarritakoa dozu.

Idazti onetan, txikia izan arren, gai askoren itzak darabiltz, gai bakoitzari arin ukutzen dautsa-

buru-larua. Buruan ditugu zentzunik goratsuenak: ikusmena begietan, entzumena belarietan, sudurretan sumoa, mingainean gozamena. Musua edo aurpegia du izena buruaren aurre-aldeak. Bekokia, lokiak, masailak eta kokotza ezlitu inork esfaltzen, inauteri-egunetan baizik. ¿Zertarako otedira bizarra ta betileak? Belarri ta sudur-zuloetan ere ileak ernetzen dira.

Goian, (en) arriba. *Erdi inguruan*, casi al medio. *Inguruan*, alrededor. *Bealde*, parte baja. *Aurena*, lo primero. *Aztertu*, analizar. *Kaskar, gara*, cráneo. *Gogor*, duro. *Gaitz*, difícil. *Zulatu*, agujerear. *Garun*, seso. *Tolestu*, doblar, plegar. *Larru*, cuero. *Beso*, brazo. *Istar*, muslo. *Zail*, correoso, duro. *Ile*, pelo. *Burusoil*, calvo. *Txapel*, boina. *Goratsu*, importante. *Ikusmen*, vista. *Begi*, ojo. *Entzumen*, (sentido del) oído. *Belarri*, oreja. *Sumo*, olfato. *Mingain*, lengua. *Gozamen*, (sentido del) gusto. *Musu, aurpegi*, cara. *Aurre-alde*, parte delantera. *Bekoki*, frente. *Loki*, sien. *Masaila*, carrillo. *Kokotz*, barbilla, barbadilla. *Inork ez*, nadie. *Inauteri*, carnaval. *Baizik*, sino. *Bizar*, barba. *Betile*, pestaña. *Zulo*, agujero, fosa. *Erne*, brotar, germinar.

XXV

GIZONAREN SOINA. A) EZUŔAK

Buruan ta oinetan bezela, soinean ere ezurak, zirinak, euskariak, eta ontzixkoak ditu gizonak. Ezurik andiena, zabalena beintzat,

la. Orrelan, itzak ikasi ez eze, nun eta zelan erabilli be ikasten da. Euskera batua darabil, olan diño berak, eta euskalki guztiak euskarri dirala, gipuzkoera dau oiñarri.

Ona emen bere eskeintza ori osoan, «r» kakodunak emen jarri ezin ba'dautsaguz be:

GIPUZKOAKO ALDUNDIARI. R. M. Azkue apaizak.—**Aspaldion dazaugu alkar.**

Berori, bi urterik bi urtera gizonez aldatuarren, beti da lena, beti euskalduna, beti euskalkoia. Ni, aragiz ta odolez ta ezurrez bat izan ez ta ere, euskalzaletasunean berori bezelakoa naiz: beti lena. Alkarren antzekoak erraz alkartzen dira.

Urte asko da, niri egin dizkidan onen alderako, berorri lantxoren bat zuzentzeko asmoa artu nuela. Enekian, ordea, zein eskini. Batari eneritzaion egokia; bestea zipor exerexa zala uste nuen. Orain dakardan au apala, txumea ta ttatar-samarra dala yakiteko, begiak zabaltzea aski da. Onela ta guzi ere, egokia dirudielako, lantxo au eskintzera natorkio.

Gure euskera zar oni, aintzinako izkera guziai bezela, umetsua izateak beronen bizitzea erruz erkintzen dio. Bakarra izan balitz, euskaldun geienok ezkenduke adiskide-artean erderara yo bear izango. Ezin bakartu dezakegu, batu bai. Beredin izkelki-motaren gainean (Italian eta Alemanian eta Frantzian eta Inglaterran eta lurbira zabaleko Erri andi geienetan bezela) oso ta nunnai zabaltzeko indardun bizi izango litzake, bat egitea eskuratuezkero. Gipuzkoako izkelkia dugu onetarako gaiena: beronen gainean izkera batu liteke; bazterretako izkelkien gainean, ez, erraz beintzat.

Yaunak Euskalerriaren erdi-erdian Gipuzkoa ta izkeldi guzien muñtzat bererena yarri duenez geroztik, Gipuzkoak ar beza, beste Aldundiak baino ere gogozago, izkera batu oni bizibidea emateko ardura ta arloa.

Eztakart nire lantxo au berorren begien aurrera, magalpean ar dezan: badut nork argitaratu. Lantxo onen urren, indargarririk erosoena Izkeltzaingoa sortzea litzake. Orretarakoxe zuzenduak izango dira, eskuarteko lan bat edo besteran ondoren, nere biotzaren gar ta buruko argimargitxoak zearo.

Ar bitza, beraz, gogo onez nire liburutxo oraingo au ta geroko ditugun asmoak.

Ta idaztitxo onen jakingarri, ipuin eta olerkitxoen ondoren, amaitzeko, aur-antzerkitxo bat be ba-dakar, bere bost abestiren doiñu ta guzti. Or, alboan, idazti onen orrialde bat.

UBITZA'K BATUA

ERREZA TA ZAILLA

Lenago be gai oneri buruz makiñatxobat idatzi izan da. Geienetan buruari baiño biotzari geiago jaramon egiñaz itz egiten dogu. Len garbizale ta errez zaleen artean izaten zan eztabaidea. Garbizaleak, jatorriz euskaldunak ez diran itzak alik eta gitxien erabilten ebezan. Euskereak, jatorriz, oraingo emen inguruko izkuntzakaz zer ikusirik ez ba'dauko aurrerantzean be jatortasun ori nabarmenduaz jarraitu eiala, ta orregaitik edo elburu orren atzetik joanaz bear ebezan neolojismo guztiak sartuko ebezan. Errez zaleak barriz, erriak ulertzeko eran egin naian edozer itz erabilten eben, askotan erritar euskalduna baztartuta.

Gaur kontu au gurutzetu egin da, nastau. Izenez lengoa ba'da be izatez beste eretxiak dabiz jokoan. Gaurko euskera zailla ez da garbizaletasunaren ondorena. Ta euskera errezean diarduenak mordoillokeri gitxi erabilten dabe.

Nik neuk ez dot gogoko idazkera zailla edo zuzenago esateko, idazti zaillik. Nik idazle bat baiño geiagoren lanai albokera begiratzen dautset; ulertu zailla ete dan begiratu ta ala ba'deritxot bereala laga. Egia, ba-dira erdirik irakurten ez dodazan euskal aldizkariak.

Nik uste dot auzi au idazle guztiak kontuan izango dabela; aingeruak irakurteko ustean iñok ez dabela idatziko gizonentzako baiño. Zelan dira berez idazti ulertu zaillak? Ba-dira bai idazkera errezagoa ta zaillagoa daben idazleak, gai bera ulertu errezagoa edo zaillagoa ataraten dabenak. Baiña idaztiaren zailtasuna batez be gaiak emon oi dabena izaten da. Gaiak izaten dira errezak eta zaillak. Gai errikoiak eta goi maillako gaiak. Euskera erritarra, urria da, itz gitxikoa gaurko erriaren aotan beintzat, gitxi landua, ta goi maillako gaiak ezin daitekez erritar itzez soillik adierazo.

Baiña ba-da gaurko idazle askoren idazlanak zaillagotzen daben beste errezoia: euskeraren batasuna lortu naian idazten daben euskera. Ola, guretzat arrotza dan izkera modu orretan idatzitakoa gai inteletuala danean izerdia ataraten dogu laurdentxua ulertzeko. Gauza bera bizkaieraz edo gipuzkeraz idatzita emongo ba'leuskue errezago izango litzakigu.

Gaia da, bai, askotan idazlana zaillagoa egiten dabena. Gure aldizkarietan orain argitaratzen diran idazlan batzuk erderaz be ez litzakez errezak izango gutzat.

Ta au ola izanik, auziari erantzun zuzena emoteko, itaun oneik egin nai neukez: euskera, gai ta kontu errez ta errikoietan soillik erabilli bear da? Ala gauze guztietarako gauza izan daitean alegindu bear gara?

Nire ustez euskerea danerako izan bear da, gorengo mailletako gaiak azaltzeko be gauza izan daiteala gura izan bear dogu, maite dogun edozer gorengo maillan ikusi nai genduken lez. Izkuntza txiroa, bigarren edo irugarren maillakoa izaten beti ez daiala jarraitu.

Orretarako, alegindu egin bear gara, edozer gaitan muturra sartu daiala, gai sakonenean be idatzi egin bear. Ta ementxe dago ultzea. Erriari, beragandik urruti dagoan izkera zaillik ez jako emon bear, naskatuko daben eran ez jako idatzi bear, ori euskera irakurtetik urrutiratzeko izango litzake-ta.

Ta alkarren aurka dagoazan errazoi biok zelan buztartu?

Ba, joera bietako aldizkariak sortuaz. Inteletualak eurenak izan daizezala, len diranak gitxi ba'dabez barriak sortuaz. Erritar izateko sortu ziran aldizkariak erritar izaten jarraitu daiela, ta inteletualak erriari zerbait irakatsi daikeela uste ba'dabe erri maillara jatsiaz itz egin daiela.

Ba-dakit gure erririk geiena guztiz edo oso-osorik ezjakiña dana euskerazkoa irakurri ta ulertzeko, orretarako oiturarik ez dabelako, baiña orrekaz gogoratuta ez dot idatzi; orrentzat errezena be zailla izango litzake. Ez, besteak izan dodaz gogoan, euskal aldizkariak artu ta ia ezer irakurri barik baztartuten dabezenak, ulertu ezinda.

KAMIÑAZPI

POZAK ETA KEZKAK

AGUR'ERI EGUR... ETA AZPIJOKOA!—*Ez da gaurkoa. Gure aldizkaria agertu zaneko asi jakuzan zirikatzen. Batean, ildako ta zar guztien argazkiak argitaratzen genduzala; gero zuzendaria erdelduna gendula; baita, laister aspertuko giñala, ta ez dakit zer geiago. Gerotxoago, gure idazleegaitik iraiñak eta esamesak zabaldu zituen. Baiña ez dira nekatzen; besterik ezean arpidetzeko txartelak euskeraz eta erderaz egiten doguzala-ta... ekin! Eta zure aldizkari orrek ez ete dau beste orrenbestekorik egin? Ala astoak zaldiari, belarri-aundi?*

* * *

IGERIAN IKASI.—*Euskerantoa darabillen beste aldizkari baten labankeria: Gure zuzendariak bere bizibide batzuk ditu, ta euskereari laguntzeko asmo onenarekin erdi-galduta egozan idazti ederrak emon dauskuz, ta orain gizaldietako idazle zarren idaztiak barriztatzea nai du. Orretarako Euskaltzaindiaren baimena ta babesa lortu ditu. Orain arte «erdal abogatu» izan danari, orain igurtziak datorkioz, gure aldizkariaren egin-bide ta idazkerea aldatu dagiazan, baiña alperrik! Edo, egiaren alde oraiñarte bezela; edo, itxas-ondora! Baiña, kontuz! Gure ontziagaz batera... itxasoa zabala da.*

* * *

BIGARREN ASMOAK.—*Doipuruak Batikano'ko «erregetza»n jarraitu ala ez jarraitzea, Eleizearen askatasunerako, edo askatasun oberako, zein ete egokiago? Teori utsean, ez jarraitzea. Gizonon artean, gaur, sarri ta ia beti, jarraitzea. Aske izateko bere buruaren jabe izatea oba, iñoren azpian lotuta izatea baiño. Au baiña, eztabaidagarria da; zalantzik ez dabena beste au: Batikano'ko jabetza utzitea eskatzen dabenak askatasunaren oberako, beste au nai dabe... Eleizaren buruari aldanik-eta indar geienak kendu, Eleizea bera errezago ondatzeko. Ta orrenbestean idazle arrotz orreik, «R» bikin naiz batekin.*

* * *

LOTSATZEN ASI?—*Editorialak jo ta ke dabiltza idaztigiñan. Iñoiz baiño geiago argitaratzen ei da euskeraz... baiña, zer? Labatik urten barria dan azken «opillak» bere gazigezak izan bear ditu: gure aurka beti azaltzen dan idazle baten iritziz «erdal kutsuak eta batere landu gabeko iztegiak» ditu bere idazkeran. Eurak ori esateko, zelakoa ete da euskeranto ori?*

* * *

ZUZENTZAILLEAK.—*«Egun On Amigos» saillean, Bilbo'ko gazte talde batek euskeratu ta Columbia etxeak agertu daben disko polit orrek h'rik ez dabelako-edo, auxe diño: sagu txikia, sagutxo zurra (tituloak olantxe* etorten dira*), ta erderazko «vienen» ori euskeratzerakoan «suelen venir» jarri dabe. Ea euskera geitxoago ikasten dogun... ba-dakigu, Jose Luis langille neka-eziñak ez dau emen erru aundirik, itzulketari obeak bear, noski...*

PIER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Egiztatu egizu zerorrez
BYASS 96
diñoen aiñako garaitsua dala...



GONZALEZ BYASS
JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

GAZTA

IÑORK EZ DAKI

«Iñork ez daki bere edestia».
Edesti bako umetxo bat da.
Iñork ez daki ezer beratzaz.
Ustegabean, gure argazkigillea an zan, da berari esker eldu jaku ume onen irudia.
Bere gurasoak?... Ba'leike ilda egotea
Bere erria?... bombardeoaren su pean dago.
Bera?... Egunen batean gizon egiten ba'da burua biurtuko dausku esanaz: «ZUEN ZIBILIZAZIOA AU ETA AU BAIÑO GEIAGO EGITEKO GAI DA».
Izen bako umetxo bat da.
Edesti bako umetxo bat.
Arpegi bako umetxoa...
Eta, alan ere, UME BAT DA.


.....

Eta orain itaunten naz: Zer egin ete dau umetxo onek?
Benetan tamalgarria gure munduan jaioten dana.
Eta bitartean, gure gizarteko pake-zaleak (?) eta aberri guztiko lendakariak eztabaida zital baten saiatuko dira.
Zergaitik?... batzuk alkar artu-emonetako maia borobilla izan daiala gura dabelako; eta besteak mai laukoa gura dabelako.
Ez, umetxo, zu ez zara iñor gaurko munduan. Zuretzat ez dago lekurik gure zibilizazioan.
Eta bitartean, gure munduko bardintasun zale batek bere txakurrari urrezko orizak ezarriko dautsoz.

.....

Zuk ez dozu errurik, baiña or zagoz...
Zuk ez dozu iñoz pakea ezagutuko, baiña or zagoz...

Zure barruko garbitasuna udaberriko lili bat dirudi, baiña or zagoz...



ETA BATEDON BATEK ESANGO DAUSKU: «MEZEDEZ, EZ EIZUE OLAKO ARGAZKI ITXUSIRIK IPIÑI ALDIZKARIETAN».

EZKAURIATZA'TAR XABIER

APAIZ IZANDAKO BATERI

Benetan ez nian iñoiz pentsatu, apaiz izandako bateri idatziko nionik. Izan ere, orain direla urte batzuk, nork siñistu bear zuen, apaizak apaizgintza ain errex utzi bear zutenik?

Dena dela, gure pentsakizunak geienetan, zail izaten dituk egi biurtzen, oraingo ontan noski, berdin gertatu zaidak neri ere.

Orra ba-da, nundik nora, uste gabean, irekin gaur idazlan onen bitartez, topatzen naizen. Aurrera jarraitu baiñon lenagotik, esan nai nikek, lagun bezela idazten diatela.

Sarritan nere buruari galderak egiten zizkiot, ire jokaera dela bide. Beraz ire baimenakin, utzi eidak zenbait gauz adierazten.

Ze arrazoik bultza ote dik, ire erabaki ori artzeko? Bein batean, ire aurretik bide berdiña emandako apaiz batzuri, onelako zerbait entzuna nauk: «Obekio duk apaiz txarra izatea baiño, apaizgintza uztea». Egia esateko, nere iritzi apalean, ez negok bat aien erantzunakin, ez diat uste-ta gizon txarrik ludi zabalean arkitzen danik. Ez gaituk burrukalariak izango, geienetan arazoetatik igeska ibiltzen gaituk. Askotan kobarde utzak. Baiñan ortik txarra izatea, bere aldea ba-dagoela uste diat benetan.

Biotzez siñistu nai nikek, i ez aizela igeska jon txarra aizelako, baizik, beste eginkizun sakonagoak eta garrantzidunak tartean diralako, ala ez...?

Ire erabaki ori artzeko pentsatzen diat, naiko min eta buruauste izan ditukela, ez bai-dek txantxetako gauza ik emandako pausoa. Ala ere, beldur nauk irekin, zer nai dek esatea? Ez ote aiz damutuko gerora? Kontuz gero!, erantzun bat ematea baiño erraxagoa izaten duk igeska joatea.

Erabaki au artu dukelarik, aldamenean jaso dituk ez birao gutxi, ez utsune gutxi, ez ditek ulertzen noski. Nik ulertu nai nikek, baiñan apaizgintzarako txarra aizen bezela, beste eginkizun orretarako ere, ala aizela aitortzen ba'duk ez nerekin konta. Burrukan irekin, igeska iñorekin.

Eleiz dorreko kanpaiak egunero jotzean, ire barrua mogitu araziko ditek, eta zenbat gauz etzaizkik etorriko burura. Oiean gaixorik utzitako amon ura, bi gazte aien pekatua, aldareko kandelak... illunabarrean, eleizan belaunikaturik, zenbat aldiz aitortu duk pekataria aizela?...

Biotzez, agur bero bat.

RAMON ZAPIRAIN

EUSKERAZ ZELAN EGINGO DOGU? (II)

Oraintsu, Urrutia'tar Gotzon jaunak, nire «euskeraz zelan egingo dogu?» (I) AGUR'ean argitaratutako lantxoari erantzuten eutson, eta erantzunen artean zera esaten eban: Izan zala Nabarniz'en guztiek aitzeko idazle bat, Zabala-Arana jauna, bere aldian guztiek aitzen ebena. Orain, nik Urrutia jaunari ta eritxi ori daben guztiei, ori eztala egia diñotset. Nire aita aldi aretan ere, orain lez, irakurle ona ta zaletsua zan; baita nire amoma be, batez ere eleiz idaztiak ba'ziran. An egoan gure etxean, Zabala-Aranak egindako Klaret'en itzulpena, «Gramática Vasca», tabar... Baiña nork irakurri? Nik ez dodaz irakurri nai ere, naita batzuetan egin bear euren idazkerea jakiteko.

Arek, orduko aldizkarietan idatzitako lanak, nire aitak diñoanez, ezin leikezan irakurri be. Esate baterako, erriko izparrak, barriak, aldizkarietan irakurrieran, obeto zan erderaz txarto irakurri, ta aitu, euskeraz egin baiño, naita errian jazorikoak izan, euskera aretan iñok aitu eziñekoak ziralako.

Aspaldi onetan, antzeko gora-bera bat sortu da. Agertu yakuz lan asko egiten ari diran gazteak eta ez ain gazteak. Or dabiltz jo ta ke. Egia, lan aundia egiten dabe, Aranaren girokoak lez. Gogor joten dabe. Ainbat liburu euskeratu dituz, barriak argitaratu ere bai. Liburu zarrak ikasten alegiñak-alegin dagoz orain: oso txalogarria. Aranatarrak, esan dodan lez guzti ori bardin egin eben.

...Baiña, ba'zoaz errietara, ta zer? Aste onetan bakarrik, Bizkai erdian ibilli naz, eta eltzen izan garan leku bakoitxean, betiko itauna: Erri onetan ezer irakurten da euskeraz? Ta erantzuna, geienetan: bai, artzen ditue batzuk au edo beste errebista.

Lekurik geienetan ikusi dodanez, onek edo arek, batenbatek «Anaitasuna» artzen dau: Asko poztuten nau orrek, nik be gogoz aldizkari ori irakurten dodalako, ta oso gaurkoa dalako, baiña beste alde batetik, pena aundia emoten daust; beragaitik, errietako askok eta askok euskerarik jakin gura be ez dabelako. Danetan esan dauste, ez dabela aitzen, ez dagola aldizkari ortan idatzitakoa aitzerik. Orduan, zergaitik artzen dozue? Ba, zeozer euskeraz, gurea dan ezkero artzeagaitik, baiña ez dogu, zeozer izan ezik irakurten, ez dogu aitzen-eta. Erderaz miila bider obeto aitzen dogu.

Bear bada, bakarrik euskera euren zeregiña dabenen artean, edo euskera saillean geien geienez sartuta dagozanak, eta zaletsu bat edo bestek, ondo aituko dabe «mordoillo» ori; nik be aitzen dot, zaletsu naz-eta, naita ez erderaz baizen errez. Baiña onek gitxienak dira. Ta euskerak geienena izan bear dau, naita antza danez euskaldun guztiena izan ez.

Pena aundia artzen dot errietakoak «erderaz irakurri bear esaten dausten bakoitxean euskeraz ez dogu aitzen-eta».

Lanean gogor, baiña, nire ustez, errezten barik euskerea gaizten zabiltzen guztioi, eskabide bat egingo nauskizue, itaun bat, obeto: Zergaitik, izkuntza guztiak errezago jarri eziñik mundu guztian dabiltzan garaian, zergaitik gaiztu nai dogu euskaldunok gure euskerea? Zertarako an eta emen H bat sartu, ain erreza leku guztietatik kentzea danean? S edo Z; TS edo TZ ondo ipintea, gaitza da, baiña uste dogu, bearrezkoak dirala idazkeran, naita itz egiñeran izan ez: S'ren gogortadea ezaguna da, Z leunaren ondoan. Baiña, zertarako H ori? Aranatarrak «bijotza» idazten eben, oraingoak, ostera, «bihotza»; «biotza» jartzea ain erreza izanik eta esan bear guztia besarkatzen dauala.

Lotsatu egiten naz izkuntza onegaz plazara urtetzen, lotsatu, gure artean ez garala aitzen esaten daustelako danak, eta egia da ori. Orain errian egiten dogu euskeraz, eta ume askok, naita emen jaioak izan, berton be ez. Onetara, laister, etxean be ez, geure etxean be aitu eziñik izango gara-ta.

«Euskera batua» lotsagarrizko bat sartu nai dauskue. Bai, Aranatarrak lez Euskelerriko kondairan, gure istoria motxean, agertuko zarie: orretarako bear diran puntu guztiak ondo bete dozuez, ori izan ba'da zuen naia. Orain... jarrai bide errezari, izkuntza bat ez da izkuntzagaitik edo beraren izateagaitik, gizarte baten artu-emonegaitik baiño. Ta gizarte bat, edo bere izatea ez danean, zertarako gura dogu liburu arteko, idazti zar arteko izkuntza bat?

GARATEA



discos Columbia

etxearen garaipen barria

KONTU KONTARI

Pepita'k, alako txakurtxu uletsua erosi eban lengunean.

Iru egun barru an joan zan txakur saltzaillearengana bizi samar betozko illunagaz esanaz:

—Asarre nator?

—Zer dala-ta?

—Zuk auxe esan eustazun: Txakurtxuok 15 urte bizi izaten zirala.

—Ta alaxen da.

—Bai e? Ba... zuk lengunean saldu zeustanak egun biren buruan luzatu ebazan lau ankak. Ta... emen ni, txakurrik barik.

—Orrek esan nai dau, zuk erosi zenduanean, txakurrak 15 urte, bi egun gutxiago eukozala.

* * *

Errupiño'ri esan eutson osagilleak: Urdailla zulatuta daukozu ta lenbailen osatebakuntzea egin bear dozu, operaziñoa.

—Lagaiztazuz egun batzuk erabagia artzeko erantzun eutson gexoak.

Etxeratu zanean, sendiarekin izan ebezan lenengo eretxiak. Oneik esan eutsen, beti miñez ibiltea baiño oba eritxoela, zirt edo zart egitea.

Gero, bere lagunekana joan zan, ta oneik be, antzeko zerbait esan eutsen. Eta euretariko batek, Ebaristo'k, berari be urdailleko osatebakuntzea egin eutsoelarik, adore geiago emoteko, gaiñeztu eutson:

—Ezeik izan bildurrik! Joan eiteke nasai. Lenengo, mai-ganean jarriko abe luze-luze patxadaz. Sartuko daue besoan bape miñik barik alako ziztadatxu bat; eta bereala asiko dozak banan-banan lagun guztiak aienatzen, desaparezitzen, eure begien aurretik.

Osatebakuntzea amaitu ondoren, senera etortzen azanean, barriz asiko dozak eure lagun guztiak agertzen, orreik be banan-banan. Eta egiña egin! Agur biotzerreak eta agur gazgatzak (bikarbonatuak)! Euk nai dokana jan eta edanaz, bapo biziko aiz. Kito urdailleko erre-minduak!

Adorez beterik joan zan Errupiño gexotetxera, Ebaristo lagun ebala. Egin eutsen osatebakuntzea ta «senera» biurtu zanean esan eutson lenengo ikusi ebanari:

—Kaixio Ebaristo! Emen gozak!

Eta aurrean eukonak erantzun eutson:

—Ze Ebaristo ta Ebaristo oste! Ni, San Pedro nok!

* * *

Gizona, buru ta arpegi zauriz beterik, osatetxera eroan eben.

Azkar eta arin, garbitu eutsezan zauriok, oi dan lez, zapiño zuritxoekaz, guratzuekaz maillatuak eta abar estaldurik.

Alakoetan, zauritua nor dan jakin egin bear ba, ta galdetzen dautso sendagilleak:

—Zure izena?

—Pello Azkarregi.

—Ezkondua?

—Ez; bastarra jo dot, neure belbillagaz.

ABELETXE

GURE «ORIXE» I

Eta zearbidez **Pio Aita Kaputxino Zauriduna**

«ORIXE» (1888-1961), elertian arana-goiritarren garaietako gizona dogu.

Aranatarren garaian, Arana-Goiri'k berak emondako bultzadaz eta eragieraz, euskal idazleek abiada azkar ta indatsua artu eben ta goi-gorantza yoazan, Euskerea, Elizatik kanpora atarata be, lur zabalean diran gai ta yakintza guztietara eroan ta sartzeko.

Ta ausarki erabilliz gero, Euskerea arlo orotarako egoki ta gai egin gogo eben, daitekezan gai sakonenak ta sotillenak ta gatxenak ta goienak azaltzeko ta yakitera emoteko.

Euskera igon; ta sar ta barrendu orokartasunera (unibersalitatera); ta mailla artan lekua irabazi ta «plaza» artu, yendeek ezagun ta maite egien. Orretarako euskal liburu baliotsu ta mamitsu ta ederrak idatziz. Argiak ta dirdiratsuak aldi areik; ta itxaropenez beteak!...

Zorigaiztoko guda a etorri izan ezpalitz ta euskal abiadea moztu ezpaleu ta geurea zan dana suntsitu, egungo egunean beste kukurruku ozen ta bizia yoko euskun guri geure oillarrak, geure Erri eder, maitean!...

«ORIXE» izan zan urte areitako idazleetan obenetarikoa. Baiñan ez uste, dan-danean arana-goiritarra zanik. «ORIXE» alderdi bako gizona zan berez. Aren liburuak, danak goi-maillakoak dira, orokartasun-giroa daroatenak danak. Eta bera ilta amar urte geroago, argitara daben liburua, «Jainkoaren billa» izenburu, ber-berak ipiñi eutsona, bere besteak baiño areago, orokarra ta ganetikoa ta ludi guztirakoa da.


Izenburuak adierazoten dauskun lez, «Mistika»z diardu. Eta «Mistika» yakituria, Jainkoagaz geure artu-emonak zelan erabilli darakuskuna, erlijio guztietarikoa da; ta beraz baita izketa guztietarikoa. Erlijioa, Jainkoagaz berba egitekoa da: ta berba orreitan, «mistika» ideiak ei dagoz barrutu ta azalduta. Orregatik, izketa batzutan geiago ta bestetzutan gutxiago; baiñan danetan erabillia izan da «Mistika», erlijioa, be; alangoa edo onelangoa, danetan dagoelako.

Ez da munduan erririk, erlijiorik ez daukanik. Ez da erri-izketarik be «mistika» ideiak, gutxi-asko, erabilli ta agertu ez dituzanik. Erlijio guztiek, naiz kristau naiz bestelakoak direla, danei dagokie «mistika» oldozkerea, gauzarik andiena ta garrantzitsuena bezelakoa. Danak daukee euki euren «Mistika», au da euren onbidea, on ta oso ta santu ta Jainkoagaz bat izanik bizitzeko erea.

Beraz «ORIXE»k, «Jainkoaren billa» liburua egitean, guri emaitz ta bezuza benetan baliotsu ta bitxia eskaiñi dausku. Ta Euskerea aberastu, bikaindu ta edertu egin dau egi-egiaz.

Zorionak ta eskerrak aren illoba Aranalde'tar Joxe Mari abade yaunari, aurre-itzaz ta guzti liburu ederra argitara dauskulako...

YURRE'TAR YULEN A. k.



Gaur eguneko
emakumearentzat
bere Bankoan
kontu edegia
eukitea legezkoa
da.

Lenago, aurreratua
aurreski-gutun
baten gordetzea
aiña.

BANCO DE BILBAO

onek emakumeen eskubideak
onartzen ditu

EUSKALERRIKO IPUIÑAK

URREZKO LARAKOA

Buztintza'tar Errose'k eginda, eta Kerexeta'tar Jaime'ren ardurapean argitaratuta.

OARRA.—Len be argitaratu dira «Mañariko»ren ipuin erreskada batzuk aldizkarietan, «Euzko-Enda», «Gernika», «Arantzazu» eta «Jesus'en Biotzaren Deya» izenekoetan. Ondo be ondo artuak izan ziran, gaiagaitik bakarrik ez, baita euron antxiñako euskal-usain eta euskera gozo ta jatorragaitik be.

«Mañariko»ren ipuin guztiak liburu baten argitaratzeko esan dauste sarritan. Ba-dot ori egiteko asmoa. Bitartean, irakurle, AGUR aldizkari onetan irakurri al izango dozuz, iñun argitaratu bagarik dagozanak, aurretiaz arein idazkeraz eta mamiñaz jabetu zaitezan.—**Kerexeta.**

* * *

Izarrak dantzan ziarduen eta illargia barreka egoan gau zoragarri baten, Usua lamiña liraiña, Mugarra atxean Kataxuri'ko armokil aundiaren gaiñean, aparteko dantzak egiten asi zan. Eta, illargi mosu-zabalari adi-adi zala, besoak gora jaso ta ankai bizkor eragiñez, aizearen otsean dantzan etenbagarik egiten eban.

Orretan ziarduala, baiña, alako baten, lamiñeak oiñak ezarrita armokilla, bere lekutik bat-batean urtenda, mendia-beera bilinbolaka keia ta lantarra eriola abiau zan, «Inpernu-errekara» —Aldebaraieta'ko errekara— eldu arte.

Eta orduan, «Ilinti» lamiña nagusiak, Usua liraiñari, begirakune zorrotza egiñaz, asarre-bitsetan esan eutsan:

—Neskato! Jausi ba'don jausi, oa atzetik igesi, gura ez ba'don gatxik ikusi...

Eta ori esanda, Ilinti'k, gau aretan bertan armokilla barriro Kataxuri'ra ekarri egiala agindu eutsan.

Usua lamiñea, barriz, bere nagusiaren esana egitearren, *Inpernu-errekara* ariñeketan joanda, armokilla uretatik ataraten asi zan. Guztia alperrik, baiña; orretarako egiñalak eginda be, armokillari ikaratxo bat be ezetara be ezin eragin izan eutsan.

Eta, bere guraria iñundik iñora be ezin bete ebala konturatu zanean, Usua lamiñea, mendian ardi zuriak zaintzen ziarduan artzain-mutillagana joan zan, laguntza-eske.

—Artzain, eure bear nok! Inpernu-errekara jausi yakun armokilla jasoteko, eure bear nok, mutil... Orretan lagunduko daustak, eztok? Bestela... nire galdua! Ilinti ankerraren zigorra neure lepoan legokek...

—Lagunduko dautsut, bai... eta pozik lagundu be. Estualdian aurkitzen danen bat poztutean, nire biotzak atsegin aundia artzen dau-ta...

Eta beste bagarik, lamiñeagaz batean *Inpernu-errekara* joanda, bertako armokilla ataraten asi zan; eta alegiñak-alegin eginda gero, uretan egoan armokil andia, bizkar gaiñean Kataxuri'ko txuntxurrera beingo baten jaso eban. Orduan, bai, lamiñaren poza!

—On-egiñaren saritzat, orain zer eskatzen dok euk? —itandu eutsan Usua liraiñak artzain mutil gazteari, abots gozo-gozoz.

—Nik, ezebez... —erantzun eutsan mutillak—. Batak besteari orrenbeste on egiteko beti gagoz gu.

—Tirok, ba, mutil; tirok, ba... Eskerrik, asko, mutil.

Eta eskerronez esan eutsan:

—Alako baten, ba... estualdiren batenedo, gaurko on-egiña zelan-alan eskuzabalez ordaindu bear izango dauat, bai... Negar dagikanean-edo...

Artzain mutillak, azkenengo berbok entzutean, bere begiak *Arriaga* basetxera zuzenduta, ben-ben esan eban:

—Negar sarritan egin bear izaten dot, bai!...

* * *

Beste egun baten be, Usua lamiñea artzain mutillagana joan zan. Egun aretan, artzain gazteak bere artaldeko ardi ederrak, eguraldi txarraren bildurrez, txabolarantz eroaten ziarduan. Arazo orretan ziarduala, Usua lamiñeak, mutillari dei eginda, samurkiro esan eutsan:

—Mutil, itzi egizak mendian ire ardiak, orain be eure laguntza-bearrean aurkitzen nok-eta. Gure auntz zuria, Mugarra'ko auntz ederrena, atzo goizean, nora be ez dakigula aldendu yakuan. Esne gozo-gozoa emoten euskun gure auntz kutun-kutuna galdu!... Eta gau osoan bere billa mendirik-mendi ta basorik-baso ibili izan nazanarren, auntzik ez bere azterrenik be ezin aurkitu... Gure tamala! Onetan be, euk lagundu bear izango daustak, mutil. Lagunduko daustak, eztok?

—Bai, orixe!; gaur be lagunduko dautsut, bai... —erantzun eutsan mutillak gogo onez—. Nire ardiak txakurraren ardurapean itzita, ortik zear mendirik-mendi auntzaren billa joango gara.

Eta beste bagarik, Usua ta mutilla, mendirik-mendi auntzaren billa joan ziran.

Ibilliak-ibilli eginda gero, Mugarra'ko auntz zuria Arranaitz'ko labar baten erdian egoala ikusi eben. Eta orduan, leku bildurgarri aretatik auntza atara egiala erregutu eutsan lamiñeak mutillari. Mutilla, baiña, aren esana egiteko muker: bertako jauskera bildurgarriak burua zorabiatuta, beeko trokara jausi zeitekeala-ta...

Lamiñeak, barriz, olako bildurrik arean be ez egiala izan, esan eutsan. Eta Usua'k, artzain mutillari bildurra kentzearen, begi biak zapi gorri bataz estaldu eutsazan, ixilmixilka belarrira esaten eutsala: «Begi-begitxu, ez ago itxu, jatsi adi labarra beera, eta ekarri egik, buru ta anka, nire auntz kutuna: gatxik arean be ez dok izango-ta...»

Usua'ren esana egitearren, gure artzain mutilla, begi biak estalduta ebazala, labarrabeera jatsi zan; eta labarraren erdian, «begibegitxu ez ago itxu» deadar aundiz esanda, auntz zuri ederra beingo baten gaillurreratu eban.

Usua, auntza esku-artean ikustean, pozez zoratu-bearren aurkitu zan. Eta mutillari, pozarren begirakune gozoa egiñaz, auxe esan eutsan:

—I lako mutillik ez yagok... Ire egintzak arrigarriak dozak... Adoretsua az. Biotzak arabil... —Eta gerotxoago—: Eta... egiñiko mesedeakaitik, orain zer eskatzen dok?

—Ezebez... —erantzun eutsan mutillak—. Negar dagidanean poztutea baiño ez dautsut eskatzen...

* * *

Gaiñeko egun baten, artzain mutil gazteak, bere ardi zuriai begiratuez, artogarraunak lakoxe negar-malkoak isuriez, mendian negar eta negar egiten eban.

Mutilla olan egoala. Usua lamiñea bertatik igaro zan. Eta, mutilla alan negarrez ikusteak, berari be biotzean ikutu eutsan. Eta, negar-egite a zegaitik ete-zeitekean jakingurarik, samur-samur esan eutsan:

—Ori dok negar-egitea! Orrenbeste malko isurteko, zer dok, mutil? Zer jazoten yak?

—Arriaga basetxeko alaba bakarragaz ezkondu gura dot, eta...

—Ene!, ori baiño ez ba'dok... Ezkondu adi beragaz, ta kitu...

—Bai, baiña... Arriaga'ko etxagunak, bere alabeagaz ni ezkontzea ezetara be ez dau gura.

—Zergaitik ez yok gura, ba?

—Lugintzan ezertxo be ez dakidalako... Bai, ba; txiki-txikitarik artzaintzan bakarrik nozu oitua-ta... Arriaga etxaguntza ederrean, barriz, nekazari ona bear ei'da. Ni, barriz, orretarako gauza ez... Orra, ba nire negar-egite au.

Mutillaren zoritxarra ikusita, Usua saminduago jarri zan; eta len berari ainbeste mesede egin eutsan mutilla zelanbait pozteko alegiñetan asi zan.

—Ez adi estutu, mutil, ez adi estutu —esan eutsan—. Oraintxe emongo dauadan bitxi eder batek zoriontsu egingo au-ta...

Ori esateaz batera, kolkotik atarata, «urrezko larakoa» eskuratu eutsan.

—Ona emen, nekazari on-ona egingo auan larako miragarria —esan eutsan irri-barrez—. Berau aldean dokala, «larako, larako, egin lan eta lan asko» esan ezkero, edozein lugintza-lanari ondo baiño obeto ekiteko laguntza apartekoa izango dok. Olan dala, emen inguruetako nekazaririk onena eu izango az. Eta orduan... Arriaga'ko alaba bakarragaz ezkontzeko zoriona bertatik izango dok.

Mutilla, lamiñaren eskutik arturiko urrezko larakoaz, ezti-bitsetan jarri zan, Usua'ren esanak zeatz-zeatz beteko ziralakoan.

Eta geiago bagarik, Arriaga basetxera arin joanda, ango soloetan lanean asi zan.

Lenengo egunean, urrezko larakoa aldean ebala, «Larako, larako, egin lan eta lan asko» esanez, atxurketan asi zan; gero, barriz, laietan, bedar-ebaten, burdiñaraketan, eta abar.

Egun bi ta erdian olan jardunda, Arriaga basetxeko soloak, ertzetik mertzera ederto landuta, sekulako edertoen ipiñi ebazan; Ikusgarri gelditu ziran!

Aren lan-egitearen ederra ikusita, Arriaga'ko aita-alabak arrituta geratu ziran. Len orretan ezertxo be ez ekian mutilla, nekazaririk onena eginda ikusita, poztu be poztu egin ziran. Eta nekazaririk onena bera zala-ta, artzain mutilla, Arriaga'ko alaba bakarragaz ezkontzea erabagi eben.

Eta egun batzuen buruan, eztegu andi bat gertatuta, neska-mutil gazte biak pozpozik ezkondu ziran. Eta aurrerantzean, zoriontsu be zoriontsu bizi izan ziran...

UDABARRIKO BIDEZ

Udabarrian barruratuz goaz bai, ta, urteko egunik etormindu, itxaropentsuenetan, egunik epel ta alaienetan bideratzen asi gara aldiak beraz dakarren ametsondo, bizigurazko gogo-barritze ta iluziño pozgórriz. Esan geinke Neguak, bere egun otz ta motzakaz, bere edur ta medur, gau izarga, illun ta luzeakaz, alde egiña dala zorionez. Ta, or-emen, udabarri deika zebillen otaloreak bere aldamenean dakus bizimin zoragarriz sortu diran larra eta zelaietako lora apalak...

Udabarrian bere izaten dira bai, iñetazidun ta trumoi-ots gogorrezko egungune odeitsu ta illunak; baiña, eguzkia, egunik egunera gozoago, beroago datorkigu ta, berotasun susperkor onen bultzada gorari ta bigunez, lurra askotaz iantziago ta ezeago, beste itxura alai, pozgarri ta eder bat artzen dakusgu: zugatzak orri mardul, orlegiz; landa, zelai baso ta abar, inguru guztiak or-emen agiri dira berein muetako lora-bitxizko iantzi eskeinkor, apaiñez.

Txoriak bere, iñundiko eresi-txintada, txorrotxio berezi ta zaratatsuekaz, egurats argi ta barri onek damotsen gozotasun epel ta biziguraz, kabi lorretan gogotsu ari dira bai, maitemiñezko jira-bira ta alkarketa iorantsu ta ikusgarrietan, goiz-arrats oskarbiak alaikiro aberastuz. Au, negu ondorengo itzarte amesgarria! Lotan zegon bizia itzartu, esnatu da. Ta, nundik nora, zelan gertatu da ain ixil, egun batetik bestera, goramin ederrean datorkigun egun barritze, mirari ikusgarri au? Antonio Machado españar olerkari ospetsuak onela abestu eban:

La primavera ha venido
Nadie sabe cómo ha sido.

(Udabarria etorri da ta
Iñok ez daki zelan izan dan).

Iñok ez daki ez zelan gertatu, izan dan, baiña, etorri dana ondo dakusgu ta, egia da; orbelpean, zabartuta, lo zetzan bizia esnatu da bai, ta negu otz, illunaren arpegi txarra aldendu ta alboratuz, poza nabaitzen dogu barruan, egun barri oneikaz gerora, etorkizunari begira. Itxaropen ta ametsez bete ta ernaitu gara bide-bazter, txoko guztietan izadia ezetzen, loratzen, edertzen, biziratzen ikusiz...

Goramiña, bizi-ikara, ego-dardara, eguzki ta euri ederraren zarraztada onuragarria nabaitzen dogu lurraren magal, kolkoan, aize bigun batek lurrindua. Izateko gurari ta gogoa. Arrigarria benetan bizitzako sorkari ezkutu, izadiaren barritze, ta, bereganatze, izadiaren aupada eder, biziratze gartsu au! Zelan izan leike?

Izadiari begiratuz, une baten nortu, geureratu gaitezen gogoratu ta oldoztuz, bere lau aragietan gizona zelan sortu zan... Pentsa ta begiratu bein ta berriro izadiari, oraingo urduritasun bizi ta loretsuan, ta ausnariu ondo bizia zer dan...

Udaborria lorara dator gero buru izateko. Loreak zitua dakar, frutua, ta guk, aldi txarrak azturik itxaropen bizizko bidetik iarraitu nai dogu, usteak, amets zindo ta onak barrituz. Lengo zauri, oiñaze ta ezbear askoren lorratz ta oroimen mingotzak oraindik minbera geure soin-arimatan daroaguz baiña, asper baga, gure biotzetako udabarria benetako udabarri emaitsu ta eder baten biurtu, betikotu nai genduke, giza ta gure erri-maitasunezko orez. Ta ekintza iraunkor, iraultza bizigarri baten maitasun beroz Erria Erritu, Erria Euskalerritu, gizarteratu ta munduratu... Ametsak, ametsak ederrak ez ete dira? Udabarriak edonori poza dakarkso ta itxaropena. Eguzkiaren gozotasun berora izadia suspertzen, alaitzen dan legez, alkartasun sendo ta zindo baten artuemon, eroapen elburutsuz alkar berotu, alkarri eutsi ta batez bere alkarri lagundu bear dautsegu zerbait iaretsi ta izan nai ba'dogu. Beraz ekin ta iarrai itxaropenezko bidez. Udabarria egurats, arnas barriaren ikur berezi ta ederra izanez, iarraitu daigun aurrera, kemen.su, geure euskel alorra, geure euskel gogoa indartuz, ta geure biotzak maitasunez udabarrituz. Ekin bakoitzak bere txiki-aundizko alegin batabestetsuenez. Ez aiko-maikoetan ibilli, baizik erle eztilari, langillearen antzera, ta orduan gure lora-ametsak ezti, zitu, alerik ederrenetan biurtuko dira.

MUNIATEGI'TAR SABIN

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

MUNDUKO OIARTZUNAK

Cuba aldian bizi izan geranontzat, oiartzun politak ikusi genitun eta ikusten ari gera geroztik emen, andik urruti. Ni Habana erridi eder ta aundian izan nitzala urte batzuk bai-dira. Nik lenen ikusi nitun gizon gazte bizardun aiekin orain gogoratuaz iriparrea sumatzen det. Bizardun aiek inguruetako mendietatik jetxi ta sartu ziranean, asko errosarioak ta beste antzeko tresnak, beren bularretatik zintzilik, geroago ta orain aiek eman duten bira bestaldera ikusirik, biotzak tin egiten dit.

Gogoratzen naiz ere, egun gogoangarri ura, Fidel ta beste lagunak Batista zegon jauregia artu nairik tiroka joan ziran eguna. Aien tartean zan Etxeberria mutil on ta jator ura. Pentsa, asalto ura egin aurreko egunean jaunartu zun. Etxeberria an il zuten Batista'ren piztiak. Gaur, beonen irudia, Etxeberria'na, seilluetan jarririk dago. Bai-zan beste gizon on ta jatorra beaiekin. Onen izena Cienfuegos. Onen azkena, guziok dakigunez, egazkin batean bera jausi ta il zan.

Fidel'ek, Sierra'n zeunden denporan, beti Cienfuegos'i deitu, ta iritziak eskatzen zizkion. Cienfuegos'en itzak ain sendoak bai-ziran! Bai-zan ere beste bat, Huber Matos. Onen azkena, espetxean sartzea Fidel'ek.

Zergatik? Olako gertaerak askotan ixilikakoak izaten dira, eta ez dira bear diran bezela garbitzen. Cienfuegos bera jausi zala... ta zergatik erori ote zan eta olako ixilluneak. Beste millakak, zer egin zuten? Iges, berak nai zuten bidea ez zualako aintzakotzat artzen. Fidel'en lenengo egunetako lagunik onenak areriyo orain.

Cuba, ugartea danez ta oso urrun beste lurraldeetatik, esan genezake iñoren laguntzarik gabe gelditu zirala millaka oiek, Fidel ta bere antzeko guziak jaun ta jabe geratzen zirala.

Urtean joan dira. Arrezkeroz, zenbat gauz ikusi ditugu ta jakin Cuba'ko gauzetaz ta gertakizunetaz? Fidel ta bere lagun oiek, berealan beretzat areriyo ziran guziak kenduaz. Batzuk biali miami edo beste laterrietaruntz, besteak espetxetu, xeetu ta orrela gelditu, geroztik, jaun eta jabe ugarte osoan.

Munduak geroztik, ikusi ta ikusten degunez, aldaketa aundiak egin ditu. An genduzan ondasun guziak galdu ditugunok, bai degu zer esan.

Fidel'ek urte auetan esan dituan itzak amerikanoen aurka, ikaragarriak dira, ta oraindik esaten ari dana. Esan dezagun, rusoagatik daudela, dauden lekuan agintzen. Rusia'ri komeni zitzaion amerika inguruan orrelako lagun bat edukitzea ta lagundu leporaiño armatzen tramankulu guziekin. Izan zan ere une latz bat Kenedy izanak ortzak erakutsi zizkionean... ta geroztik or daude.

Geroztik, Johnson ta orain Nixon pamatuak, ba-dirudi komunistekin lagun izan nai duala, edo ta, beintzat pakean bizi. Burrukak ez izan onak noski. Izan degu guziok naiko mintasun azkenengo gudan, Europa'n. Bazter guziak autsita ez da ezer irabazten. Orregatik, Nixon jaunak beste bide bateri eldu dio, ta jo batera ta bestera ebilli.

Ikusten degunez ere, Vietnan'go gudan gero ta gutxiago dago. Geldika-geldika guda mutillak ateriaz. Orain oztea... Nixon'ek eman dun bira China'ra joanik ta Pekin'en besarkatu Mao, Txuenlay ta bere areriyo purrukatuak... oiek ikusita, zer esango degu?...

Ez naiz arritzen batere. Naziztak Europa'n egin zituzten erailketak ta orain millaka aietatik bazter guzietan ederki bizi, ta patxaran, askok naiko diru ostu, ta ori naiko ez dala, berak gaur berriro agintzen. Txakurrak bezela berdin izan txakur, baiñon koillar barriakin...

Gertaera auek ikusita, zer esango degu? Munduak eman dun bira ain aundia izanik, zeiñeri siñistu?

Nixon jaunak guziakin pakea nai duala dirudi. Orain arteko gudak ez diotelako kaltea besterik sortu; eziña izan dulako areriyoak menperatzea, besterik ezean... esaerak esaten dun bezela, okerretik txikiena...

Amerikanoak oso onak ziran, Europa'ko guda bukatu zanean laterri guziari diruz lagundu ziotenean. Laterri oiek geroztik jeiki ziranean, Alemani, Prantzi ta besteak, zer egin zioten? Jaramon gutxi, ta amerikanoak bakarrik komunisten aurka. Estropots aundia amerikanoentzat noski. Vietnam, Jerusalen, izanik mokari gogorrenak. Zer lagundu diote bere lengo lagunak? Ezer ez, ta orregatik amerikanoak besteen otztasunak ikusirik, pakea billatzea erabaki du Nixon'ek. A ze nolako parreak egingo dituzten orain, bai Fidel'ek, bai Mao'k eta abarrek!

Gaur ikusten degunez, idealismorik ez dago, erlijioa gutxiago. Bakoitzak alduena egiñaz ta besteari begiratu gabe.

Marxismoa, komunismoa, faszismoa, demokrati ta antzeko ismoak, ezereztuta gelditurik.

Zer egin du ingelesak? Pasifico'ko base guzitatik indarrak atera, utzi lurrak ta beren etxeetara joan. Eman Afrika'ko lur guziari askatasunak ta orkonpon. Gero amerikanoak bakarrik or dabiltz ezin zaituaz aiek utzitako bazterrak. Orain amerikanoak ere, uzteko dira base aiek... bere lagun Filipina, Formosa, Tainland ta abar dardarka gelditurik. Auek zer bideri elduko diote? Ez dakit nik, guk, gauzak ikusi ta gero ta ez aurretik idazten degu, naiz ta usaia sumatu erraz... Pazifiko'ko lurralde oiek konfiantza galdu dute, bai inglesekin eta berdin emendik aurrera amerikanoekin.

Nola moldatu orain? Nola izango da, Japoi'ri nai duana egiten utzirik? Japoitarrak berriro berekin dute arroputs izatea, komunismoari eltzeko, ortako leporaiño armatuaz.

Esango dute askok amerikanoagatik berriketa ugari. Au egiten dutela edo ta bestea. Inperialistak dirala ta abar... Ta, zer dira besteak? Neretzat berdin. Begira rusoari zer egin zuten, artu zituzten lurrak berekin betiko artuaz; laterri gizajo oiek auziaz, puzkatuaz, ta arro jaun ta jabe. Or daude, txekoak, polakoak, alemanak; Hungria, Rumania ta besteak, menperatuak. Eta, oiek zer dira? Ez al dira inperialistak?...

Amerikanoari ez dakit ze erru eman lezakenik. Beintzat, artu zituzten lurrak berriro beren jabeari eman zizkioten, naiz ta gaur egunean eduki base bat edo beste, ori bai-dakigu zergatik dan, komunisteri eltzearren.

Ingelesak ostera... koloni asko eman zituzten, askatasun ta guzi. Baiñon, Rodesia'k ortzak erakutsi zizkion eta or dabiltz arrezkeroz burrukan...

Orain albisteak irakurtzen ditugunez, Nixon jaunak Fidel'ekin batu nai du... Amerikanoak auteskundeak dituztenean orrelako aurrerakadak egin nai dituzte, gero botoak irabazteko. Ala ere, guziok dakigun egi aundi ta mardula, ori da, amerikanoak diruz alde guzitako laterrieri lagundu diotela, gaur egunean beren kutxak ustuta gelditurik. Ez alda naiko ori? Dana dala, nik ori ikusita arrazoi ematen diotet berei. Orrenbeste milloi dolar ematen dun laterriak, bai-du gero guzien buru irautea ta eskubideak izatea gauzak bear diran bezela egiteko edo besteeri bide onean jartzea eskatzeko. Bakoitzari berea eman daiogun.—E. OZKIN

«ETORKI» AMERIKA'RUNTZ

Epaillaren 24'gnean Petroria'n idatzitako eskutitza jaso det: «Ego-Afrika ontatik 'Etorki' taldekoak darabilkigun ibillaldia bukatzera dijoa. Iru azkeneko emanaldiak Johannesburgo'n eman ditugu il ontako 20, 22 eta gaur».

«Ordu batzuek besterik ez, eta egazkiñean izango gera Rio Janeiro'runtz. Egia esan, ba-degu gogo lurralde au uzteko. Alderdi au oso aberatsa da. Oso polita, baiña minori zuriarentzat. Beroientzat dan onena. Itungarria da uritik kanpora ateratzea, eta beltzak gure Euskalerri'ko oillotegiak baiñon txabola txarragoetan bizitzen ikustea. Eta unkigarria nolaz zer-jantzi eske, txanpon baten eske datozkizuenean... Batez ere uri nagusiak ain politak ikusten dituzunean. Geieñak txaletak dira, baratz ederrez inguratuak. Emen datza ezberdintasuna, bai bizitzeko eran ere.

Nazioa aberatsa da, noski, diamante meatzak, urrezkoak asko.



Ba-degu gogo emendik aldegiteko, ez gaizki gabiltzalako; erregei bezela, ez zaigu ezer falta-ta. Hotel onetan, bazkari ederrak... Aldegiteko gogoa, emen gizaki girorik ez dagoalako baizik. Arratsaldeko zazpiretarako kaleak utz. Igandeetan, edanetxe eta jai-tokiak itxirik, auxe... jai.

Bein Brasil'en gaudenean, Aste Santua dalakotz, oporralditxo bat. Amerika'n lenengo emanaldia Jorrailla'ren 2'gnean. Egia esan ongi datorkigu atseden-aldi au. Pentsa, Sudafrika'n berrogeitamabi egun igarotatik berrogeitabi aktuazio. Uri aunditxo guztietan izan gera. Durban (700 milla biztanle), Pietermaritzburg (120 milla), Pretoria (500 milla) eta abar.

Ego-Afrika guztia igaro degu, uri guztietan jardunik. Gero, onegatik, oso ongi ikusi degu emengo arazoa. Barkatu berriro aitatzea. Baiñan razista amorratuak dituzu. Guk, beltzekin artu-eman gutxi izan degu, benetan denborarik ere ez asko. Baiñan artu-eman gutxi orretan, beltzak arriturik gelditzen ziran, ez bait-daude oituta txuri batzuek beroiei, esate baterako, agurtzea. Guk, bazkal ondoren, euskaldunak geranez, umore ona. Orduan sukaldeko beltzei abesti batzuek lau abotsetan eskeiñi, gero berak euren dantzak eta abestiak guri. Onegatik, Hotel batzuetan jaleo batzuk izan ditugu. Beltzekin gure adiskidetasuna ikusirik, Hoteletako zenbait nagusiek asarretu ta bai azkar poliziari urrutizkiñez deitu ere.

Guk ere gure begiak eta biotzak ditugu, Onegatik, eranegun euskaldun bikin arkitu giñanean, gure poza. Bata Asparren'goa zan; bigarrena, lekeitiarra. Zeiñek esan, emen, Johannesburgo'n.

Onuzkeroz jakin-gogoz egongo zaralako euskal dantz, soiñu ta abestiatzaz emen zer dioten, izparringi baten kronika bidaliko dizut».

Jaso ere egin det izparringi au, eta idazki au luzatzen dijoakidalako, urrengo batean englandarretik euskeratuta emango dizuet.

Orrenbesteko diskriminazioa, berezitasuna dago emen. Orrenbeste eroria ta zanpatua dago bertakoa, beltza. Guk, euskaldunok ulertzen degu beltz auen negargarrikeria. Erori guztiekin gaude. Bear bada geiegi ikasi degu, alderantzira pentsatzeko.

Orrenbesteko diskriminazioa, berezitasuna dago emen. Orrenbeste eroria ta zanpatua dago bertakoa, beltza. Guk, euskaldunok ulertzen degu beltz auen negargarrikeria. Erori guztiekin gaude. Bear bada geiegi ikasi degu, alderantzira pentsatzeko.

UXOLA

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

CASCO VIEJO
TENDERIA

Boutique
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak
Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

ERRIETAKO BARRIAK

(«AJOZUS»)

Tolosa

IRADIER ABESTALDEA.—*Ostiral San. San Frantzizko eleizan. Eleiz-abestien kontzierto eder bat. Gutxi baiñan euskeraz ere bai zeredozer. Txalo ugariak, batez ere Madina'ren «Aita Guran».*

Teknika aldetik, gozotasun eta alkartasun ezagarri bat, sumatu diet. Nik bezela, entzuleak txalo eta txalo jo diegu bai soprano bakarle dan Gorostiaga andereiñoari, bai talde guztiari. Epelde organistak naiko lanak izan zituan bere organo txar-txar artaz.

Benetan, ene anai gazteiztarrok, AGUR onen bitartez zorion bero, zorion bizi damaitzuet. Eta iz dedilla gal tolosarrekin dezuten lokarri estimagarri ori. Eup, gazteiztarrok!

AGUR.—*Il ezkillak ere jo zizkitzuen. Konorbadore ta fatxista zerala ere bai esan norbaitzuek, auen artean orain ezkondu eta ezkongai diran zenbait erlijioso «pregresistek» (?) Arestian ere bai, emen, marxismoa klokatzeko arrautz dan apaiz batek. Ufi! Karidadea nola dabillen!*

Orain asterokoa izatera zatozenean poztu dala, baiñan «idekiagoa» bear zenukeala ba-dio norbaitek. «Ultra» omen zera, baiñan katuari koskabilloak erkitu nai ortaz, esan ere esaten dizu arpide-orriak euskeraz eta erderaz idatzi dituzula. Ori pekatua! Eta bere «idekitasuna»? Bera ultra-justzialista, nunbait... Ene! baiñan zenbait bere gogozko editorialen orriak, aldizkari batzuena, eta batez ere idatzizko erderakadaz fariseoki ixiltzen da. Bai, euxko trapu zikiñak estali nairik... iñorenak asmatuaz eta atereaz. «Ultra» itz ori, tira...

Ori ta guztiz zurekin AGUR, egunerokoan biurtu arte.

UXOLA

Valencia

Izpar atsegiñak bialdutzekotan izan naz aspaldi, ta alperkeriz edo lotsaz, urrengorako geratzen yatazan. Gaur, alperkeriak baztarrik, barri mingarri bategaz nator. Emen, euxetik urrun, euskaldunen artean ain maitea dendun zornotzar Arrieta'tar Amantzi, AGUR'en «Egilleta» izenagaz idazten ebana, il byaku. Lau egun lenago —nok uste olakorik— zuxe iñostan: «Gure AGUR asterokoa izango dok eta guk lagundu bear yautsagu, emen diran euskaldun guztiak arpidetu bear yuaguz». Ta nik, beraren aldean kemen gitxiago izan arren, aren naia betetan yarraituko dot. Goyan Bego adiskide on-on au!

BURDIN-GORI

Oñati

Berbizkundez, gure joan ziranen alde urteburuko meza izan genduen. Jente asko alde ederra bildu giñan bertan. Orain-dik ez ditugu aaztu. Ba-gaituzue zenbait nekin.

«Pagausu» edo «Sociedad de Caza y Pesca»k, urteko bere batzar nagusia izan du. Batzar nagusi ortan, jun dan urteko artu-emanen garbitasunak ikusi ziran. Ondoren, batzorde berria aukeratu zan: Lendakari, Altube'tar Joxe Mari; idazkari, Leturia'tar Antonio; diruzain, Agirre'tar Felix eta beste sei lagunzaille. Ikusten danez, lengo urte batzuetan erdipurdiz ibilli da diru artu-emaneko kontua. Orain, gauzak, beste bide bat artu dutela dirudi: orain arteko artu-emanak garbitu, zorrak ordaindu, a artzeko bideetan jarri da.

Batzoki au, AGUR asteroko izparrin-gan be arpidetu da. Oñati'n, amar batzoki omen daude. Batzoki onek, beste batzokieri irakaspen ederra eman die, ai ba'dute euskal kulturaren alde zerbait egin.

Sanjuan auzoko Garagaltza-Aundi'ko nagusia zan Arkauz'tar Luis, 74 urteretan il da. 1931'ko erri-auteskundeetan ainegotzi aukeratua izan zan. Udaletxean ordikoaren aulkia zaintzea izan zuan bere zeregiña. Baita ere, il da, Arregi'tar Maria (Arrasate'ko Zeleta baserriko alaba) gure lagun dan Idigoras'tar Eustasuren emaztea. Eriotza oiek mindu ditu-

Galdakano

ATXUTEGI'TAR JULENE'RI.—Orain alditxo bat dala argitaldu gendun «Menditar Artezari Laburra» —«Breve Guía Montañera»— idaztiñoa dala-ta, AGUR'en 33'gn zenbakian, Atxutegi'tar Julene idazle jatorrak, idazlan goralgarri bat zuzendu dausku, bear bada geiegi goralduten gaitula, guk egin doguna, pizkat ausartu ezketiño, beste edozeiñek be egin daikelakoan gagoz-ta. Edozertara be, eskerrak emon bearrean gara idazle euskalzale orri, ba-dakigu ba maitekiro aipatu dabela guk argitaldutako idaztiño ori. Egi-egia esateko, naiago genduan gure izena aipatu ez ba'eban, edo gitxiago goraldu ba' ginduz, ba, naita idazti txiki ori argitalduteko ondo astidu ba'dogu be gure txindi-sakel legorra, eusko mendi-kirol garbi au maite dogula, bildu, mendi izen eta goitiak egiztatu ta gertatu dogu, burukomin asko emon dauskun lantxo ori, irabazi neikenari begiratu barik, naita ainbat galtzeko arriskuan izan.

Aipatu gaituen ezketiño, zer gogapen izan zan idaztiño ori argitalduteko bultzatu ginduna esan bearrean gara: Aspaldiz ikusten neban, ez genduala sakelean eroateko erako artezaririk gure mendi-ibilketetarako: mendizenak, goiti neurriak, bertara urreratzeko erri ta alderdi egokienak zeintzuk diran esaten dabenik, eta ortik asi nintzan bilketak egiten, marrazkiz, goi-be neurkiñez egiztatu, ta sorta bat egin ondoren, idaztiño orretan argitaldu Euskelerri'ko mendirik geienak, baita Iberia'ko garrantzitsuenak be.

Mendizale asko izan dira atsegiñez artu dabenak Menditar Artezari Labur au, ta ori dala bide, ainbat mendizale bazkunek eskatu dabe moltso ederra, ta besterik ba'litz, eskatu bei zuzenbide onetara ta laster izango dabe euren eskuetan: Jesus de Altuna, Peluqueria, Galdakano.

ERIOTZAK.—Ainbat eriotza izan dogu aurten. Lenago, onetariko eriotzak banakak izaten ba'ziran be, aurtengo neguan ainbat izan dira gure erri onetan. Euron artean, ara emen azken aldian gure artetik Jaungoikoak eroan dauskuzan euskeltzaleok:

Epaillaren 27'gnean, Egia'ko auzunean, Lekue'tar Pellipe il zan, Lekue anai-arreba mendizale jatorren aita baketsu ta gizon zintzoa, irurogei urtedun zala. Urrengo egunean, 28'gnean barriz, Yurrebaso'tar Jon, irurogei ta amairu urtedun gizon argi euskeltzalea, Bekea'ko auzenean. Goian Begoz adizkide biok.

«AÑARBE» IL DA.—Ori irakurri genduan: «Añarbe joan zaigu. Saminduak gaude benetan errenderiar euskaldunak». Eta alantxe da; benetan samingarria izan da guretzat be izpar baltz ori. Ez genduan arpegiz ezagutzen «Añarbe» idazle jatorra, ezta ez genkian orain arte Korta'tar Andoni zanik be, baiña oso ezaguna zan guretzat, eta beste euskel irakurle askorentzat, bere idazki mamitsu ta txukunen bitartez, aspaldiko urte askotan.

Atsegiñez irakurten genduzan «Añarbe»ren idazlanak; mamitsuak izanik gaiñera euskera garbi, argi ta gutiz ulerkorrean idatziak ziralako bere idazlan guztiak. Goian Bego, ta an goitik argi egingo al dautse ain maite ebazan Euskera ta Erria'ri.

BASA-JAUN

Donosti

Aste Donea joan zaigu. Egun auetako Elizkizunak Ayete'ko elizan, eder-ederrak izan ditugu. Josu'ren Nekaldi, Eriotz eta Piztuera ederki berritu ditugu; esan bezela, elizkizun jatorrekin. Guztiak euskeraz noski, eta txit ederrak.

Ostiral eta Larunbat Guren'ean berriz, Antigu'ko Sebasten Donea elizan, aurrak, berentzat elizkizun bereziak izan zituzten, oso egokiak. Pozik irten giñan guziok —aurrak eta gu— andik ere.

Orain arte, au guzia pozgarria da, baiña... arritzekoa orain ere «baiña»ren bat izatea! Zoritxarrez, orrelaxe da ba!

Lenengo «baiña» auxe da: Len esan bezela, Ayete'n eta Antigu'n, elizkizun ederrak izan genitun euskeraz. Baiña Donosti'n beste eliza asko ditugu; eta Aste Done'ko elizkizunak, osorik euskeraz, Ayete'n bakarrik izan ditugu. Nere iritziz, oso gutxi da au, oso gutxi ere; eztet uste donostiar euskaldun guztiok Ayete'ra igo gaitezkenik. Beste bi edo iru elizetan ere, zerbait izan da euskeraz, baiña Ostegun Guren egunean meza bat izatea, adibidez, ez det uste iñola ere, naikoa danik! Ea ba urrengoan, aurten baiño eliza geiagotan izaten ditugun, euskaldunok, guretzat elizkizunak.

Zoritxarrez, euzkotar askori Aste Done'ko elizkizunak ez diete buruko min aundirik ematen. Ez bai-zaizkie ajolik oietan berritzen ditugun gertakizunak; oporraldi txiki bat izateko aitzekia besterik ez bai dira egun abek!

Konturatuko ote gera, garaiz, Jaungoikoa alde batera utzita guzia galdua degula. Oraingo «aize» berri oiek ez digutela gauza onik ekarriko? Biurtuko al dira gauzak bere lekura!

AMALE'K

Arrasate

ASTESANTUA.—Aurtengoak igaro dira, ez tamal ez aintzaz. Lendik ona, asko galdu dute jai eder oneik. Lengoak ere ba-zituzten akats batzuk, ba, orduko jokera askondako, norbere buru erakutsi naia besterik etzan izaten. Orduan larregi alde batera, eta orain bestaldera. Ala ere, eleizak ondo beteta egon ziran, eta elizkizunak eta itzaldiak arretaz entzun ziran.

BERBIZKUNDE. — Euzkotarrentzako egun gogoangarria benetan Eleiz-jai aundi au, ta egun ortan eleizak beterik aurkitu ziran, eta gero euzkotar jendea arpegi alaiz, eta gozotasunez beterik, kalean gora-bera jardun zuten. Gero sendi arteko bazkari ederrak bakoitzak bere etxean. Geiago ezin, oraindik beintzat.

BATZAR BAT.—Emengo lantegi ezagun baten ospatu zan batzar ori, euren barruko gora-berak erabakiteko. Ordutaerdi erderaz jardun ondoren, erabakita zengo bezela, gazte ausarta bat euskeraz mintzatzen asi zan, eta bere mintzaierari asiera emon zionean, an zegozan erdeldun batzuk asarratu egin ziran eta uluka ta marmarka asi ta beste barik, aretoa utzi ta kanpora urten ziran. Egikera au eziketa bako notiñen egin-kera besterik ez da. Ez ziran danak olan jokatu, ta batzuk gaizki eretxi euren lagunen joakaera orri. Arein artean geienak, erbestetik etorriak dira, ta emen ondo artuak, «diskriminazio» barik, eta ikusi zerekin pagatu nai duskuen.

Ezagutzen ez zituzten aurrerapide guztien jabe egin dira emen: etxe politak; irrati dotoreak; urrurikuskiñak; butano-sukaldeak, eta abar, baita mailla guztietako ikastolak ere. Baiña len esan bezela, ez ziran danak jokaera ori artu zutenak, itxuraz, besteok, eziera obakoagoak. Onein artean be batzuk izaten dira eskerronekoak, baiña tamalez gutxienak.

Orain itz bi euskaldun guztiei. Ez auldu orrein zarata ta iskanbillagaitik, eta jarrai nun eta noiz-nai euskera erabiltzen, eta berariz, jarraitu aipatu dodan gazte orren jokaerari, ta ez bilduri-rik izan. Gure errian gagoz eta geu gara bertako, ta aurrera!

ERIOTZAK.—Aspaldi ontan eriotz asko izan da, ta geienetan euskaldun jatorrena. Ara oraingo ontan nortzuk diran: Eriz'tar Domeka, igeltsero ezaguna, 80 urtegaz.—Aranzabal'tar Miren Bitore, 58'gaz, Inda'tar Emili'ren emazten.—Bitoria'tar Benite, 74 urtegaz.—Garai'tar Kepe, alarguna, 61 urtegaz.—Sagasta'tar Anbortze, 88'gaz.—Onek laugarren belaunaldia ezagutzeko erea izan du, ta olan eren-amona edo tatarabuela izatera eldu zan.

D. Manuel Caso osagillea ere il da. Eriotz au Salamanca'n gertatu da, ango semea zan-eta, baiña gure erri ontan zeukan bere bizi-bidea. Umeen gaxoetan zuan bere berezitasuna, ta oso onartuak izaten ziran bere aolkuak. Goian Begoz, gure ondotik joanak!

UDALAITZ

Arratia

Berrogeikaroa, garizumea joan yakun. Jaungoikoa'kin eta lagun urkoagaz bake egiñik —zorretan izan ba'gara— artu-emonak zuzenagotu, sendoagotu ta egokituteko berebiziko aldia.

Gurutzeratua ta illa izan zana, biztu zan; lotuak eta menperatuak azkatzera etorria, jagi zan..., jorraillaren bian, egun gogoangarrian.

Erri txiki indargeak baiña leen bazen gogor gogorkerizko edez loturik, euskaldunaren biotza barriz... korapilloturik, mataza egiñik, azkatu eziñik.

Jorraillaren 2'gnean zan, Euskalerri txikia, baiña osotua ta alkartua zirudian eleizatadian, errikide batekin aurrez egin eta agurtu ondoren, biotzean daukan zuldarra osatu ta korapilloa azkatu nairik nigana jo eban eguna.

Eta tamal-oxinean ia-ia itota irudian gizon-gizona, era onetan asi zan: «Etxekoak etxean eta anaiak anaien artean sorturiko burruka zatitzaillearen barri sakon-sakonik etxakiat, bai orratio, bide barriak urratu ta egin guran, bakoitza beraren opillagaz arduratuten ari dala. Bilbo'ko Euskal-etxe batetik laguntza-deia izan yoat, eta emen naukak zer egin ez dakitala. Zer deritxak?»

Emen dozu, ba, irakurle, Arantzatzu'n izan zan «batasun-batzarraren» oste ta ondoren garratza, zitala, aizkora zorrotza; bizirik gaukazan bizitzaren biurgune makurra.

Nerekin izan zana, bat baiño ez da, baiña Erria'ren zoririk txarrenerako asko ta asko dira noraezari emonak diranak.

Nortzuk gara errudun?

Erriagaz bat ez datozanak, «aizkolariak».

LANDAJUELA'TAR A.

Gorbea'tik

Mendi ontan ainbat mendizalen etxetxoak dira; mundu zaratatsuari bizkarra emon eta egun batzuk atsedenez eta bakez igaroteko egiñak izan dira.

Baiña, txarkeria, iñoren onik ikus-eziña, gorrotoa ta bekaitza bertoraiño eldu dira.

Agiñalde'n asi, ta Arraba'ko landaraiño diran leorpeak, etxetxoak, zabalduak edo idekiak izan dira. Orretarako barriz ondo gertaturik igon bear, ate ta leioak idekitzea ez da lan erreza be-ta.

Diru-billa ez ziran joan, Agiñalde'n ba, orritxo bat idatzirik eta ogei lauerleko be itzi zituezan, egindako kalte ta edan zituezan akeit-ezneen ordaingarri, baita larpurturik eroan eben turut-adarraren aldezko be.

Nora goaz bide ortatik? Nortzuk izan dira? Laiñopean galdurik, noraezean eta aterpe billa ibilli diranak ez dira izan beintzat, eta akeit-eznerako erabilli zituezan ontziak, lagun bat eta bi baiño geiago be izan dirala diñoe. Baiña nortzuk?

Gure mendietan izaten dogun bakea ta osasuna urratu ta zatitu guraz bizi diran satorrak.

ANGOITIA'TAR BITOR

Euskal Erriko gizon ospetsuak

ESTANIS URRUZOLA («UXOLA»)

Aspalditik neukan «Uxola»ri alkar-izketa bat egiteko gogoa. Naiz ta ni baiñon adiñ geio izan, ni bezain gaztea jotzen dut Estanis; beraz lagun bezela onartzen dut.

Len esan dut aspalditik neukala, berarekin egoteko gogua, jakinda negon lan aundia egiña dala; baiña tamalez, bere lanari etzaiola eman bere garrantzia. Egia esan, ez det ulertzen, nola gazteak liburu bat edo beste egin ta bere lanaren, bere izenaren berri, bereala jabetzen geran. Zergaitik ixilpean egoten dira gure aurrekoak egindeko lan asko? Ematen al diegu bear bezelako erantzuna, zenbait gizon ospetsuen lanari?

Arratsaldeko irurak ziren «Uxola»n etxera agertu nintzanean, agurtu eta besterik gabe, bera lanean aritzen den gelan, eman diogu gure alkar-izketa oneri bere asiera.

Tolosa'n jaioa degu Estanis.

R.—Nolaz jaio zitzaizun, edo nundik sortua dezu euskal-kultura alorreko zaletasuna?

U.—Nere izeba batek, etxeko garbiketak egitean, bertan arkitutako gauz batzuk bidaltzen zizkidan. Oien artean, euskal izparringi batzuk azaltzen ziran, Euskal-Esnelea, Kaiku ta abar. Orrela, izparringi oiek irakurtzen nituela, asi nintzan berebiziko zaletasuna sumatzen.

R.—Idazle bezela, nola ta noiz izan ziren zure asierak?

U.—Egia esateko, neri beti iruditzen zitzaidan, nik egindako lanak etzirela benetan egokiak izaten. Barrendik ordean, indar batek bultza arazten zidan alegintzeko nere neurrian; beraz; garai artan Bilbo'n ba-zan «Eguna» izeneko izparringi bat, eta bertara asi nintzan idaz-lanak bidaltzen, ikusirik gaiñera, delako izparringian oso egoki eta onartzen zituela nik bidalitakoak, bizi-erazi egin zidaten nere ogeita sei urtekin, aurrera jarraitzeak.

R.—Beraz bein asiera eman ezkeroz, ze motako eginkizunari jarraitu zenion?

U.—Erbestean, amabost urte igaro nitun, nere erritik urruti egote orrek, bereziki min aundia ematen zidan, eta ezin nere erriko kutsurik gabe gelditu iñolaz ere. Orrela asi nintzan lan batzuk egin ta bidaltzen argitaratzeko. Lan oien artean, bi nobela sortu nitun, bi antzerki eta bi itzulpen; olerki eta ipuiak ere sortzen nitun. Ipui oietako bat, bidali nuen Arantzazu'ko txapelketa batera, bertako urte betetzea bide zelarik. Ipui ori, bertako Ama Birgiñari eskeiñia zen, eta berarekin irabazi nuen lenengo saria.

R.—Len aipatu nauzu, bi itzulpen egiñak dituzula, bi bakarrik al dituzu egiñak edo geiago ere bai?

U.—Ez, beste bost geio egin nitun gerora.

R.—Zein idazlegandik dituzu lan oiek itzuliak?

U.—Bi lenengoak, bata Simenon'ena bestea berriz, Edgar Wallace'na. Beste bostak onako auena: Bernard Shaw, Rabindranath Tagore, Mauricio Rossenkof, oneri, aurren antzerki bat itzuli nion, J. Conty-G. Vissant ta Hnos. Quintero.

R.—Zenbat sariketan jaso izan dituzu sari edo premioak?

U.—Len aipatutakoa, au da, Arantzazu'koa, Zarautz'en C. I. T.'ek antolatutako ipui sariketan, lenengoa; Toribio Alzaga aurrentzako antzerki sariketan, lenengoa; Agora'ren babesean antzerki sariketan, bigarren, Donostia'n C. A. T.'ek antolatutako olerki sariketan, bigarren; Errenderi'n egindako sariketa batean ere, bigarren gelditu nintzan.

R.—Nolaz jaio zitzaizun antzerkirako zaletasun ori?, ikusten baitut geien egindako lanak gai orri elduaz direla.

U.—Oso gazte nintzalarik, joaten nintzan euskal antzerkiak ikustera, eta gerora, nere errian sortu zen antzerki talde bat, eta nik ere bertan artzen nuen parte, orrela bada asi nintzan pixkan-pixkana, ortarako zaletasun ori sumatzen.

R.—Ze moduko gaiak erabiltzen dituzu zure antzerkietan?

U.—Neri, sozial gaia erabiltzea zait atsegiñen, arazo ori dut geien sentitzen dutena, naiz ta beste gai batzuk ere erabilli izan, poliziakak eta abar. Ba-dut gaiñera, Oesteko gaiari elduaz idatzi nuana. Nere ustean, era onetako nobela, euskeraz, nik egindako au izango da lenena.

R.—Zein erri izan oi dira, zure antzerkiak azaltzeko aukera izan dutenak?

U.—Errenderi, Idiazabal, Tolosa, Oria'ko Alegri, Legorreta ta abar. Nere «obra» abek antzeztu dirala: Neronek Galdu nuen nere alaba», «Biok... Jeronimo alajaña», «Ezkontzeko deia», «Itzulera»...

R.—Antzeztu gabekoak?

U.—Asko dira, ona batzuk, «Indarraren legea», Iñakitxoren Altxorra», «Larreborda», «Eskolaria Piper», azkeneko au, aurrentzako egiña dut. Danera nik sortutako antzerkiak, ogeitabost dira. Esan liteke, gutxi gorabera, urtean iru



edo lau antzerki egiten ditudala. Antzerkitik aparte, lau nobela ditut egiñak.

R.—Idazle bezela, zure lanak zenbat izparringira bidali izan oi dituzu?

U.—Len aipatutako «Eguna», «Euzkadi», «Goiz-Argi», «Zeruko Argia», «Eusko-Gogoa», «Arantzazu», AGUR, «Kardaberaz» taldea...

R.—Idaztea utzita, beste eratako eginkizunik egin al duzu?

U.—Direla urte batzuk, nere saioak egiten nintun, bertsolari bezela, eta lagun artean kantatu ere, bertsoak, Ondartza eta Zepai lagun nituelarik. Gero itzaldi batzuk ere eman izan ditut. Azkenekoa, Donostia'ko Gotzai eta ogeita amabost apaizen aurrean ain zuzen.

R.—Ezer geiago Estanis?

U.—Bein ikastolan gertatua: Nere lagun batekin lezioa ikasi bearrean, iupui bat idazten ari nintzala, Irakasleak igarri zidan, ez nintzala berak emandako lanean ari, beraz neregana inguraturik, papera kendu zidan nere ipuia bertan zeramala, jakiña danez, ni beldurrak negon, zigortua izango nintzala uste bai nuen. Baiñan ustegabean urrengo egunean; nik egindako lan ura «dictadorako» irakurri zigun irakasleak.

Ez da emen amaitu gure alkarizketa, gauz geiotaz itz egin degu, baiña ezin iñolaz dena emen agertu.

Estanis bizi dan etxeko sotuan, sei-zazpi neska mutil erderaz ari dira izketan, benetan min eman dit. Min ematen didan bezela, Loidi idazleak ziona, «Uxola»'k ba-ditu lanak, benetan atsegin eta interesanteak, tamalez argitaratzen ez direnak. Zergaitik, zergaitik, zergaitik...

RAMON ZAPIRAIN

Filolojiazko jardunak V

IPARRALDETIK ARGIA...

Orrela zerizkion Joan Maragall idazleak: «C'est toujours du Nord qui vient la lumiére». Ipar ala egoaldetik etorri, naiko goibeltasun eta asarre zerabilkiten katalanzaleak alkarren artean. Brossa anarkista zamarra zuten, zakar purrukatua, ta ez zan bat etortzen *L'Avenç*'eko beste lagunekin.

Pompeu Fabra'k aren aldarteak txantxetan artzen zituan baiñan bera ere periodisten «bohemiaz» kutsuturik gau-txori biurtu bide zan. Pipa-erretzaille ta ajolakabea... Sitges'en Rusiñol'ek zuan etxean maiz biltzen ziran, artisten lasaikerian murgilduaz. Ordukoa du Materlinck eta Ibsen'en antzerkietatik egin zuan itzulpen lana. *L'Avenç* gaizki zebillen diruz, irakurle ta lagun asko galdu bait zituan oso ezkerreruntz... nihilismora makurtu zalako.

Gogoan artu bear da aldi artan anarkistak gogor ari zirala ta «Liceo» antzokian eta baita karriketan ere bombak lertu arazi zituztela odol asko isuri araziaz. Onen ondorena «*L'Avenç* isildu ta galtzea izan zan aurrera ezin joanez».

Aren ordez, al izan zuanean, Fabra'k «Catalonia» zeritzan beste aldizkari bat sortu zuan 1898'gn urtean argitaratzen asi zana.

Literatura, Arte ta Kultura utsezko periodikua zan ete lendik ezagunak zaizkigun idazleaz gaiñera, Alomar, Verdaguer eta beste zenbait izen berri arkituko ditugu. Guzien artean berriro «*Katalan-Izkuntzaren Akademia*» sortu bear zala, aren aldeko giroa ernetu nai zuten. Alperrik ordea.

XIX eunurteurrena bukatzera zijoan eta gizaldi amaiera artan Fabra'k ostiko ta destaiña ugari leporatu bear izan zituan.

Norbaitzuek maisutzat aitortzen ba'zuten, geienok aitzitik berrizale galgarri, pipazale ta ondatzailletzat, ez zioten begi onez begiratzen; iraintzen ez zutenean. Gaitziriko ori aski ez zuala ezin biziak ematen zion naiko lan. Laguntzaille aundi ta koiñadu maite zuan Gali il zitzaion eta onekin batera alkarrekin eusten zioten Ikastetxea pikotara joan zan.

Artean Dolores Mestre andereiño andregaitzat aukeratu zuan baiñan ez zeukan iñondik ezkontzan pentsatserik. Nola arpegi eman kinka txar arri? Ark ematen zion kezka. Ontan aspaldi adiskide zuan Serrat injenieroarengandik jakin zuan Bilbo'ko Industria-Injenieroen Eskola berrian Kimika-Irakasle alkia utsik zegoala. 1900'gn. urtea aurrera zijoan. Gure gizona «Revue Hispanique» aldizkariaren buru zan Foulche-Delbosch'en aginduz izkuntzalari lanean ari zan eta ezin bada, bat-batean Bilbo'ko katedrako oposiziotan sartu. Beste arrazoi bat ere ba-zuan Mosen Alcover izkuntzalari mallorkitarrak loturik zeukala, aren Iztegi nagusirako laguntza eskatu bait zion. Ez zeukan iñondik lan aiek uzterik. Eta naiz ezer gutxi irabazi naiago zuan Bartzelona'n gelditu. Une artan sortua zan Katalan izkuntza Ikastoletan sartzeko Batzorde berezi bat bera barruan zala. Oni, Pompeu'k Ortografiari baiño ajola aundiago ematen zion. Gauzak ain geldiro zijoazen ordea! Bizimaiñak ez du itxoiten eta azkenik, bearrak bultzata... 1902 urtean Bilbo'ko Kimikari Oposizioetara aurkeztu zan goideia entzunez. Eta bai Irakasle-lekua iarabazi ere! Ona nola iritxi zan Pompeu Fabra Injenieroen-Eskolan maisu izatera; eta jakiña nolatan eldu zan Bilbo'ra bizi izatera. Orduan ezkondu al izan zan bere kutun Dolores Mestre'rekin. Eta bizi-lekua Abando'n, Espartero kalean, San Mames eta azkenik Begoña'ko etxe batean orniturik. Naiz katalan erri-miñez Fabra'k urte zoriontsuak igaro zituan Bilbo'n. Familiaren ardura eta lanaren jarrai-bidean. Ez zan berez kafetxe zale ta gizon-berritsu; bai ordea pelotazale ta mendiaren adiskide. Sasi-jakintsuekin baiño erri-xearekin pozago jardun oi zan. Kimika-ikasketak uzten zioten txolarteak katalan Izkuntzaren opa zizkion, naski. «*Tractat d'Ortografia Catalana*», *Silabari Catalá* ta «Elementos de Gramática Catalana» eskuartean zitualarik.

Catalunya'n 1888'gn urteko Exposizio ta «Jocs Florals» ezkero, Maria Kristiña Erregiña ta Menendez y Pelayo lagunkide izan zirala asko piztu zan erritarren barrunbea. Ostopo asko garaitu bearra gelditzen zan oraindik.

Fabra aruntz begira baiñan Bilbo'n lanean ziarduen. Alcover mallorkatar langille setati ta sutsuari lagundurik. Au, Iztegi oso ta aundi bat biltzen ari zan. Aren Boletin paperean Fabra'k lantxo batzuek argitaratu zituan. Baiñan pizkana arengandik urrutiratzen joan zan iritzi ez berdiñak zituztealako gai askotan. Alcover'ek «Jocs Florals»eko ortografiari zerraikion; Fabra'k aldiz idazkera zeatzagoa nai zukean. Ez zion ari ukatzen aspaldidanik katalaneraren alde egiten ari zan lan aundia ta apostolautza. Aren asmoa izan zan Congreso Internacional de la Lengua Catalana biltzea.

Batzar orretarako gaia gertutzeko «*El Poble Catala*» argitaratzen asi ziran. Emen lenengoz ikusiko dugu Eugenio d'Ors «XENIUS» izena.

Idazle argi, apain, bizkor bezin aldakor izan zana. Biurri utsa azkenerako okertu zan katalaneratik gaztelanera igesi joanez.

Alcover eta Fabra beste ezpalekoak ziran, tinko bakoitza bere iritzietan apaiza bat, seglarra bestea, zintzo jokatu zuten beti il arte.

Azkenik Batzar aundi ura ospatu zan katalandar ikurriñapean 1906'gn. Urrian agintari ta katalandar jakintsu, erri-jendetza an zala Bartzelona'ko antzoki nagusian bildurik. Pompeu Bilbo'tik etorria zan illabeteko baimenez. Lan besterik ez zuan aurkeztu: «*Cuestiones de Gramática Catalana*». Onen xeetasunak geldi bitez urrengorako.

ANTONIO M.ª LABAYEN

ETZAN ZIÑIK IZAN

Baiña alkartasuna bai, Elgeta'n, ta ez nolanaikoa! Euskera batasunari buruz, argi ta garbi ikusi gendun, bide bat baiño geiago ta onak ditugula. Bestalde, danaren gaiñetik nabari zan, gizonen alkartasunik gabe, ez dugula euskeraren batasunik lortuko.

Alkarri arrera ona egiñaz, giro zoragarri bat nagusiturik, danok alkarri irripar gozoak eskeñiaz, bakoitzak bere kezkak agertu giñuzen. Ta kezka auek, erriari ta euskerari itsatsiak zauden noski. Gure izkuntza, arazo larri ta estuan aurkitzen ba'da ere, azpijan eta sator-lan guziak garaituaz, euskera salbatu genezake.

Ta sator-lanean ari diran oiek, nun aurkitzen dira? Argitasun apur bat agertzearren, Gipuzkoa'ko ikastola bateko irakasle bat edo besten jokabidea aitatuko dut.

Ikastola izentatu onek, aldizkari bat, galdekuntza bategaz argitaratu du. Eta gurasoei galdekuntza ortan, beste galdera batzuen artean, au eskatzen da: «Zure seme-alabentzat, zer euskera batua aukeratuko zenduke? Altuna'na? Zeruko-Argia'ren erdi-bidea? Aresti-Kintana'rena?» (Or ikusi, «batu» ori inkoitza da, ta, gero, Jaungoikoan ezin zaiñistu).

Or, nun dugun aukeramen zabal ta baiezkoia! Ikastola ortako irakasle batek edo bestek, iru bide auek, aurkeztu ta eskeintzen dizkigu.

Nunbait, euskera salbatzeko, irakasle auek, ez dute beste biderik ikusten. Beraz, beste jarraibide guziak aituak izango dira.

Baiña, Elgeta'n ikusi genduan, bide dirala beste zenbait bide, eta bat: alkartasuna ta alkar-izketa zentzundun. Gu, ba-gera, ta etsaiak danetik ditugu bide au urratzen ez ba'dugu...

SAGARTZATZU'TAR JOSEB

AGUR

III URTEA
7 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - ORILLA - 6

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Udako jaiak

Udabarriaz lurbira osora alaitasuna a poza sartzen dira. Egunak luzeagoak ta argitasuagoak, egualdi epelak edo roak, lantokietan oporraldiak...

Eta barrutik sortzen jakun poz au gertzeko jaiak egiten doguz. Jaiak uri ndietan aundikeriz eta jaiak erri ikietan eta auzoetan apaltasunez, aunkeri barik.

Erri bakotxak bera nortasuna jaietan agertzen dau. Gizon basatiak eta eziak, uren erara, jaietan nortasuna agertzen abe.

Jaietan erri bakotxak bere erlejiñoa gertzen dau, bere Jainkoai opari beretak eskiñiaz. Oitura zarrak erakusten auz eta orretarako dantza bereziak, besti erritarrak eta jan-aldi bereziak giten ditu.

Gaur oitura berezi oneik euren beretasuna galdu dabe, sarritan, oituren ustatzea etorri dalako. Baiña giza-talde uztiak eurena dan izaera berezia ez altzen alegindu bear leukee. Onetan ardintasuna baiño ugaritasuna obea alakoan gagoz.

* * *

Ba ditu gure Erriak be, bere poza gertzen daben oiturak eta jolasak. Era alakoak batez be: batzuk indarra ta rebetasuna agertzen dabe, beste batzuk dertia.

Indarra ta trebetasuna agertzeko baiak: Aizkolariak zugatz-ondo sendoak eiñek ariñago ebagi jokatzen dabenean, arri-jasotzailleak arri astuanak zeiñek arriago ta ariñago leporatu jokatzen dabenean, idi-probaketea baserritarrak uren idien indarra jokatuten dabenean, baita asto-probaketea be, soka-tirea talde-talde indarrak neurtzen diranean, ta guzti oneik baiño goragoko maillan, elota-jokoa, joko guztien buru ta nagusi dana.

* * *

Baiña ez da dana indarra eta onen gun dan trebetasuna. Ba dogu beste rebetasun ederrago bat, edertiaren lagun aten dan trebetasuna.


Eta emen gai asko gogoratu bear: antzariak eragiña ta aldia batzeko rebetasuna, abeslariak abotsa ta aldia alkartzekoa, bertsolariak itza ta aldia alkartuaz, antzerkiak, askotariko saritetak...

Eta jaietan, orrein lako trebetasunik a daukan beste egite atsegingarri bat e egiten dogu euskaldunok: Sendia ta diskideak maiaren inguruan batzen ra eta bazkari ederra egin. Bazkalostean, bertsoak, abestiak eta dantzak alkartzen doguz. Bear ba'da txistularia nerik etxe ibilliko da edo agirian ezin bestu izan daben abeslariak eta bertsolak etxeetan euren eder-lana agertuko abe. Ala au be ezin egin al izango eta dogu?

Bere nortasuna jaietan era guztietara gertu ezin dauan Erria bai ba dala benean laguntza bearrekoa. Baiña biziki-lan egiten dau eta bide batetik ez a'da bestetik bere elburura elduko da. ere poza nondik edo andik agertuko dau a bere trebetasuna erakutsi bere bai. Barriko al doguz gaurkoa baiño giro ta ili obeak: geure jolas-trebetasuna ta erti-adorea agertzeko bideak zabalduko i dira len bait len.

Artean, etxetik kanpora al dana; ean, beste lekutan ezin dana, geureari asi dagiogun.

AGUR



Ez zapaldu landararik!

Karrika'ko Taldea

Karrika, Oiartzun'go errian arkitzen dan auzo bat da. Berreun bat bizilagunek osatzen dute aipatutako auzo ori.

Benetan da polita auzo au. Mendizinguraturik arkitzen da; kale bat bakarrik du, eta ezker eskubi aldera, etxeak bata besteari peatxita bezelaxe dagoz. Ibai tiki bat ere igarotzen da bertatik.

Orain direla bost bat urte sortu zan Karrika'n txistulari ta dantzari taldea, amabi ta amasei inguruan, adiñez, arkitzen diran aurrak osatzen dute delako talde au; beraren irakasle edo zuzendari neska bat zan.

Joan dan urte arteraiño ordea, ez dira kanpora joateko deituak izan; eta beren saioak, urtean bein egiten zituzten, bertako jai edo pestak bide zirelarik. Orduan izaten zuten aukera, bere kementasun eta almenak gogoz azaltzeko, jendearen aurrean. Lengo urtean deituak izan ziran baita ere, ingurutako erri batzuetara.

Gaur egun, Yon Oñatibia'k erakusten diete solfeo ta txistua. Baiñan... emen eldu zaigu tamalgarria.

Karrika'n areto edo lokal bat bakarrik dute, bere ikasketa eta ensaioak egiteko, auzoko eskolakoa. Baiñan... !ARRIGARRIA!, eskolako irakaslea, kanpotarra izanik, ez diete ensaioak bertan egiten uzten. Geiago oraindik, ausartuko ba'lirake, orrelakorik egitera, zigortuak izaten dira gero, eskola garaiean.

Ogei ta amabost neska-mutillei, barrendik irten zaiotenean gure euskalerriko folklorea ikasi; saiatu diranean ain gure ta maiteak ditugun, txistu eta dantzak zabaltzen... nolaz ukatu lezaioke, barrengo indar ori? Gazteak ez degula ezer egiten-ta, izaten dira naiko komeri bazterretan; zerbait, egiten asi eta, ukatu!

Karrika'ko gazteak ikusirik eragozpen au, lanean ari dira, jo ta ke, txabol bat modura egiten, bere ikasketa edo ensaioak jarrai al izateko. Nik galdetzen dut: Nun dagozte, erria gorde eta zaindu bear dituzten agintariak? Milla bider tamalgarria gertatu ez dedin, bereala zuzendu bear da oker au. Ez ditzagun gazteak trabak jarrita aspertu, baizik zuzpertu, laguntza eskeiñiaz. Nola bestela biarko etorkizuna, biarko euskalerria? Gazteak biarko erantzuna bere eskuetan dutelarik edo, Karrika'koak asi ziran taldearen bidez lanean, erantzun orren billa. Lan ori zanpatzea, griña ori moztea, biarko etorkizuna lurperatzea izango litzake.

RAMON ZAPIRAIN

Ta, erriak zer?

Egun batzuk dirala, euskal eta erdal izaparringi batzuetan, Agirre'tar Domingo zanaren omenez antolatutako eleberri-sariketarako oar-deia irakurri dogu. Eratzaillea, Euskaltzaindia da, ta arduradunak batzorderako izentatu diran euskaltzaiñak. Beste arauen artean, Arantzatzu'ko idazkeran egiñak izan bearko dabela diño oar orrek, au da: h'ak sartuta, ll'ak eta ñ'ak kenduta... ta abar.

Ori orrela erabaki ba'da, ez goaz gu emen larregian sakontzen, baiña bai neure ta neure lagun askoren iritzia agertzen; eskubide au ez dogu salgai, beraz, ona emen argi ta garbi esan bear dana:

Sariketa ori ez da izan ondo eratua; alde batetik arau orregaitik eta bestetik Agirre'tar Txomin'en omen lez agertzen dalako.

Arauak, h'rik erabilli ez daben eta nai ez daben idazle guztieri uko egiten dautse... makurtu nai ez ba'dabe beintzat. Ba-dakigu, norbaitek esan daike: «Zuek beste orrenbeste egin zenduen Garitaonandia sariagaz», baiña ez da egi *osoa*. Gu alde bateko aldizkaria izanik, eta ez guztiona izan bear leuken Euskaltzaindia lez, ez genduzan h'ak debekatzen mugaz andiko idazleak erabilliak izan ba'litzaz, ango euskalkietan idatziak, baiña beste gaurko onetan ez da olakorik... or konpon!

Baiña ori ta txarragoa, gure iritziz, jakiña, Agirre idazle trebea zanaren itzalpean alako sariketea jartzea da. Ez da euskal irakurlerik Agirre'tar Txomin nor zan guk esan bearrez. Euskeraz apur bat irakurri dauanak, Kresala, Garoa edo Auñamendiko Lorea, ez ete-ditu irakurri? Bere sorlekuan, Ondarru'n, ainbat lagun on ditut, aspaldiko lagun zintzoak. Euretariko batzuk, buruz ikasita ditue Kresala edo Garoa'ko ainbat orrialde. Ondarrutarren ezpanetan, Txomin zanak idatzitako elebarriak berezko txukuntasuna daroe, ezt, gozoa belarrietarako... erriaren abots bardin bakoa! Olakoxea da, izan be, Agirre'ren euskerea: ederra garbia, aberatsa, jatorra... Erri landuaren euskerea.

Villasante Aitak erderaz idatzitako Historia de la Literatura Vasca idaztian ikusten danez, Agirre garbizalea, edo obeto esateko, erriko euskera garbituaren zalea gendun. Arana'ren neolojismoak ez zituan onartzen (edo ez ebazan erabilten), bai baiña Larramendi'renak. Eta azterlariak, adi bidez, «il-gaua» dakar «gau-bela»ren ordez. Itz au asko erabillia izan arren, Agirre'k beste a sartu ei eban, romanizazioaren aurkako agertzen.

Villasante Aitak geroago diñoanez, 1934'gn urtean egindako Garoa'ren argitalpeneani norbaitek, garrantzi aundi bako ikutu batzuk egin ei eutsozan, iztegi, joskera eta abarren aldetik. Bai orduan, baita orain ere, batek baiño geiagok asarretuta salatu ei dau jokera ori; egilleari zor jakon itzala galtzea dalako. Arrazoi aundia du Villasante'k; ez dago ba, idazle bateri, baimenik barik, bere idazkerea edo esan naia aldatzeko eskubiderik. Ori, auzokoaren soloan lapurretan egitea da... ta zoritxarrez, zenbat olako! Ikusten danez, orduko gaitz ori ez da osatu, edo antzeko gaixoa barriztatu yake batzueri.

Orra ba, ez dot uste Agirre'tar Domingo' ren itzalpean euskera «barririk» erabilli leitekenik, erriko euskerea bera baiño, arek berak ain maite zituan euskalkiak baiño. Ez ete dago sariketa orretarako beste idazleren baten edo goi mailletara jasota erakusten dauskuen linguistaren baten izenik?

Nere iritzi apalean, orrenbeste dirudi, ta ziur nago, nere ondarrutar lagunak bere ez dirala konporme izango, baiña mutillak, gaur, erriaren abotsak, itzak edo naiak gitxi balio dau. Bear bada, etorkizunean, euskeraren jabe dan erriaren jakituriak, jakituri sakon eta apalak berezituko ditu lorak eta orbelak. Itxaropen onen arnasaz eta kemenez bizi gara beintzat.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Idazti Barriztugarriak

EDESTI DEUNA

IBARGUTXI'TAR JON KURUTZ'ek idatzia euskeraz. Ez dot tamalez bere azala ta ez dakit zein urtetan argitaratua izan zan. Irakurgai erreza, garbia ta indartsua. Or gabiltz ez dagola umeentzako irakurgai egokirik esaka, ta ona emen gizon, emakume ta aur zindo nai makalen edesti jakingarria, beti zuzentasunaren eta nortasun askearen mailletan gora. Ta iñork baiño obeto gure Ibargutxi zanak berak, «Irakasleai» deritzon itz-aurrean, diñosku:

«...Edesti Deuna, ez dogu ipuin antzo irakatsi bear. Jesukristo dogu gure Erosle, gure Irakasle, Jaungoiko ta gizonen Bitarteko, gizadi ta Eleizaren Buru. Gizarteko gora-bera guztiak Jesukristo'rengana joten dabe. Jesukristo'renganako gerta-bide izan zan Itun Zarra. (kakodun «r»ak eta «l»ak dakars). Gure lenengo gurasoak jausi ordukoxe, egin eutsen Jauna'k Eroslearen agintza. Ta urteak joanaz, geroago ta biziago egertzen yaku Itun Zarrean Jesukristo'ren irudia, Arek eta aingeruak Maria'ri Jaungoiko-Semea'ren gizakundea iragarri arteragiño.

Baita gure Eleizaren azi ta zustraya be, Isrrael-errian dogu. Arei jazoten yaken guztia gure irudi zala, diñosku Paul deunak. (Korint. I, 10, 11).

Jesukristo ta bere Eleiza, diran bezain eder, sendo ta maitegarri ikusi ta irakasteko bide dogu, ba, Itun Zarra.

Auxe izan da gure asmoa Itun Barriko jazokunetan be: Jesukristo'ren al-izate ta edertasuna umeai adierazi: *Guztia Jesus'ek eta Jesus'entzat egiña bai da. Bera da guztien aurren eta guztien izatea Beragan dago. Bera da Eleizaren Buru: Bera sorburu, illartetik lenen biztua, danetan lenen izateko.* (Kol, 1, 17) *Ta Jesikristo atzo ta gaur ta betiko berbera* (Eb, 13, 8).

Burua argitzea bear-bearra da. Baña ez da naikoa. Ez da ori Ikasbidearen elburua. Burutik biotzera ta gogora jatsi bear dau Ikasbideak. Ikasten dabenez bizi izaten irakatsi bear yake umetandik. Eta onetarako, eredu ta jarraibide adiñon eta egoki-egokiak doguz Edesti Deunean. Onein jardunbidea ikusiaz, umeak bere, euron antzeko izateko leyatuko dira. Orretarako bultz-eragin begie Irakasleak. Neke ta abar Ikasbidea buruz ikastez ase ba'dira, ez dogu gure ikastaldietatik onura aundirik atarako. Kistar-bizitzaz umeak zaletu; kistar-arnasaz azi; kistar gogoaz sendotu, auxe dogu Ikasbidearen elburu bikaña.

* * *

Itun Zarrean, batez bere Sorrera edo Genesis deritxon idaztian, egia ta irudiak, bitzuok naste dabiltz. Egi utsa irakatsi bearrean gara umeai. Siñistu bear doguna, siñistu bearrekotzat. Ta Eleizak gizonen eretxipean itxi daroazenetan, eleizgozin jakitunai jarraitu. Gai oni buruz asko idatzi ta irakurten da gaur egunean. Ez dagiezala, biar edo etzi, umekeritzat artu gure siñiskayak, siñiskai ta irudiki, bitzuok naste ta era berean irakatsi dautseguzelako...»

UBITZA'K BATUA

-samurki iñotson: *Begira, aŕen, enetxoa, zeru-luŕak ta bertan dagon guztia, ta Jaungoikoa'k utsetik sortu dituala gogoratu. Ez, ba, zigor-*



tzalearen bildur izan, zure anayen ideko agertu zaite, guztiok itxaroten dogun betiko bizitzan baŕiro aurkitu zagikedizan.

13. Amak praindik eragoyola, mutilak esan eutsen: *Noren zain zagoze? Nik ez dot eregeren agindurik beteko, Mois'en bidez Jaungoikoa'k emon euskun Legea baño.* Ta eregeri: *Gure gaitz guztien eŕudun zarean oŕek; ez dozu Jaungoikoa'ren eskuelatik igesik egingo.*

14. Orduan bakaldunak, suminduta, beste anayak baño gogofago zigortuta erail eban txikaŕen au. Ta azkenez ama be bai.

POZAK ETA KEZKAK

BETAURREKORIK EZ EDO...

Oraintzu, Barakaldo'ko toki baten, itzaldia. Aldizkarien gora-beerak azaltzean, ona emen an agertu ziran zenbaki batzuk: Itzlariaren iritziz, Zeruko-Argia'k eta Anaitasuna'k daukeez arpidedun geien, amar millatik amabi millara bakoitzak. Gure AGUR au, bi millare ez ei da eltzen. Zorionak beste aldizkari bi orrei... eta gurearentzat «limos natxo bat mesedez». Irakurle, itzlariak esan dituanak ez dira egiak, baiña guk iñoiz amar milla arpidedun izaten ba'ditugu, egunerokoa egingo dogu!

PLAZIDO MUJIKA AITA

Zeruko-Argia'n, Mujika Aitari egin dautsen alkar-izketea irakurri dogu. Poztu gara benetan! Ikusten dogunez «Errialde»k erriaren benetako bidea aurkitu dabela-edo... Egia ba'litz, Zorionak! Ez du «informazio» paltarik-eta.

Mujika Aitaren erantzunak... jakitun batenak; ez dago ezer geiago esan bearrik. Ikusten danez, ez eban euskera batu dalako orretzaz ezer erantzun nai izan; ez da arritzeko! Arantzazu'ko batzarrean, berari bota eutseezan «sasi-jakitun oiurik« nabarmenenak: «Zarrak etxera!» eta «Zelan idazten da inperialismoa gipuzkoera osotuan?» Olakoak entzun ezkero jakitinak ixiltzea, ez da ez arritzeko, Baiña norek egin du iztegia?: Mujika Aitak!... eta beste orreik egin bear ebena oraindik agertzeko.

BAT, EZ DA BAT

Batasuna be ez da bat-egitea. «Matematika modernuetan» zein lurraldetan zaran jakin bear aurretik. Ara, irukoenetan ba'gabiltz 3'k osotzen dabe bat eta 10 idatzi bearko dozu. Zazpikoenak barriz 12+ 2'kin bi osotuko dozuz ta 20 idatzi. Ez dozula ulertzen? Erreza da, zure sei urteko semetxoak ba-daki. Zaillagoa da «batua» izan eta zazpikia edo zazpi aitaren semeak izatea; ala ta be, ta or bere indarra ta ugaritasuna; iñon itz egiten ez dan euskerantoak, zazpi izkelki sortu al izan dauz: bata praillekume, bestea apaizgaikume, irugarrena mahonesa-saltsa, bestea txanoñokume, bostgarrenana ezkurdi-ezkerdi, sei ta zazpi, zazpikien lurraldean ez dek amairu, 16 baiño... batasuna, itxuen lurraldean, h-bonbea bezela, kateka datorren etena.

IZOZTUAK

Zozketa ez dek ozketa, ezta oztutako janarien ostuketa, Ernio ta Zelatun'en gaiñetik zear zaparta Santa Barbara azpira, emetik agertzen dituk sarri ekaitzdun odeiak, ta oraingoak txanponak estali dizkik. Magnetofonoak ere zorretan oraindik.

EA, OERA BARRIZ

Guk al genduanean, gabaz geienetan, besteeri makillea ezarri ta atzera eragin, «rectificación a vanguardia» esaten ekien. Gaur be, orrelako «konsigna»ren bat artu dabe batzuk, erria esnatu ta makillaka asi dalako. Diñoe: «mutil onak agertu bear gaituk, h'ak bokal biren artean bakarrik, euskalkiak maite ditugu-ta erabilli, erabilli...» Baiña or be atzeruntzko erretifikaziñoa dabil, irabazitako maillak ez galdu edo gitxienak galdu, erria barriz lotaratu ta bigarren ekiñaldiaren zain zur egon. Kontuz!

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Asmatzailleak bai, gramatikalariak ez

Jorrailaren 5'gneko Donosti'ko izparringi baten irakurri degu Santiago Aizarna'k «Creadores y no gramáticos» idazpuruaz egindako idazkia. Oraingo ontan, beiñepein, idazki guztian berakin oso-osorik nago. «La plaga de los gramáticos» —dio— «como antes hemos dicho, es una de la peores plagas, pero siempre que se esfuercen ellos en hacer lo que no deben, que es un adelantarse, cuando en realidad deben ir retrasados». Ta jarraitzen du, izkuntza batean aurreasmoz jokatzea ondatugarria da, orren lana atzetik batzen edo oinkadatzen joatea izan ere da-ta, erriak osotu ta onentzat artu duna jaso ta obekitu ta indartzen.

Onelaxe gertatzen da beste izkuntzetako Akademietan. Ez gurean. Aski garbi dago au Euskaltzaindi'koak azkenekoz eratu duen sariketari buruz, «Txomin Agirre Sari»ra idazleak etorri ditezen egindako deian.

Oiek ba-dakite jakin «Arantzazu'ko errekomendazioak» euskaltzain askok ez dituztela onartzen, ezta idazle geiagok ere. Ongi ari da Aizarna, dionean»... pero lo que nos falta, con vergonzosa miseria casi, son los creadores de lo que sea, ya sea poesía, novela, teatro, etc.» Baiña Euskaltzaindi'koak erabaki orrekin laguntzen al die asmatzaillei? Ez, iñolaz ez. Euskaltzaindiak, aita batek bezela, bere seme guztiak berdin maite bear ditu. Erakutsi eta otoitzatu dezake, ezin dezake baiñan bere semeak banandu, baten alde ta besteen aurka joka. Eta auxe egin digute.

Lendabizikoz, «errekomendazioa» zana «obligazioa» biurtu nai du. Arren eskatzen zuana, makillaz beartzen du. Ba-dirudi Euskaltzaindi'koeri bost ajola zaiela idazle askoren baztartze orretzaz, baztartzea bai-da, ateak itxirik asmatzaille batek irabazi dezakean txanpona ukatzea, ziur baldin ba-gaude ere, gure idazleak euskerari dioten maitasunagatik idatzi izan dutela, ta ez diruarengatik. Agian, obetogo ziur, diruarengatik dabiltzanak «erreformistak» ditugu.

Au naiko «injustizi» edo zuzengabekeri izanik ere, ba-dago arrazoi aundiagorik asmatzailleen aurka dabiltzala estako. Idazle bat, ez emen ez iñun, ezin diteke beartu izakera-molde batez. Idazle bakoitzak bere izkera darabil, bere «estiloa». «Gramatika» gaiztoa zaio, idazteko garaian. Gaitza eta kaltegarria. Bere asmamenaren ezkutu guztiak arakatu bear ditu lan on bat burutu nai ba'du. Gramatikaren arazoa baldin ba'dabilki asmamenean, bere burutik jaioko dana jaiotzetik datorkio illik. Semea iltzea da ere izkuntza berean traduzitzea; beartu bear ontaz, bestela ez diotela argitaratuko-ta, azken ontan gertatu ere gertatu bait-da asmatzaillen batek bere idazlana «euskera berri» orretara aldatu dakion, besteren bati ematea. Au gertatu da, eta auxe bai dala aur bati bere egitazko ama ken eta ama-ordezko bat ematea. Edo deabruan bere arima saltzea.

Euskeranto ori ongi datorke, agian, erderaz pentsatzen dutenentzat. Gu, amaren magalean euskera ikasi degunok, euskeranto orren itzen bearrean ez gera arkitzen, gogora ere ez ba-zaigu etortzen. Arazo ori ez bai-degu nabaitzen ikasi degun izkera jatorrean.

Zertara beartzen gaituzte, orain, Euskaltzaindi'koak? Oien makilla pean jarri bear ote gera, ala idaztea utzi? Nola diteke euskeraren zaitzaille bear lukean Euskaltzaindi batek gu, euskal idazleok, egoera orretan ipintzea? Orduan, h'kin, edo ez idatzi?

Antz arturik geunden aspaldi onetan, bere xima txar orrekin ateratzeagatik, ez zaiola ajolik idazle multzo aundi bat asmamen bideeratik kentzea, atxezaleak bizi ezkeroz. Labayen jaunari gertatutakoak ez gaitu zipitzik ere arritu. Antzekoak maiz ikusten oituak gaude. Atxekin idatzi zuan, baiñan berau atxezale ez izan. Arritu gaituana izan da bai, eman dituzten arrazoi txepelak. Pena aundia eman digu jardute onek; antziña batean euskaldunen itza nun-nai naiko lege izaten zan. Orain, asko jetxi gera, geiegi. Orain euskaltzain guztiak arazoaz jakiñik izanda ere, irakurrita ere, ez du balio... «bulegoa»ren izenean bidali ez zalako. Lendakariak ere bazekian. Baiñan jaunak, euskaldunok orrenbeste jatxi al gera? Zertifikatu egin bear ote ditugu gure eskariak? Gaiñera, testigu birekin? Aski da. Gero ez keja izan oial zikiñak argitara azaltzen ba'ditugu.

Aspaldi onetan sariketetan gertatzen diran gauz arrigarriaz oituta gaude. Azken sariketan, Agora sariketan, beste askotan bezela, ez idazlei —alper lanean jardun ez ditezen ezerezak— ez erriari ez zaio argitasun aundirik eman. Antzerki saria «desierto» gelditu zan. Ez dakigu zergatik. Lanak txarrak ziralako? Baldintzak betetzen ez zituztelako? Politika edo moral pekatua al zuten? Zenbat lan azaldu ziran? Nortzuk egilleak? Eta nortzuk epai-maikoak? Ez dakit egi dan, baiña nere belarrira etorri danez, bost antzerki azaldu ziran. Arrigarria bostetan iñork balio ez izatea. Batek bakarrik daki, idatzi duanez, lanak txarrak zirala. Bestei ezkutatutako jakin-bideak nundik-nora onek jakin? Zer «konkomitantziak» (euskera batuan) ditu idazle onek?

«Venga pues, a nuestras letras, no los gramáticos ni tantos teóricos disociados fundamentalmente del pueblo, sino los creadores, los que con el pueblo conviven para saber de sus avatares y problemas y sobre él vierten la esencia viva del arte».

Toki ederrean, Aizarna! Laguntz ederra zeukak idazleak aitarengandik. Berea ez zan dirua ere ez ziok opa izan. Egia ote dek erriak diona, bost antzerki lanak atxe gabe idatziak ziralako, dala? Jakingo dek bost! Lenago, itoko aiz, Aizarna, kiratsean.

Asmatzailleen aurkako asmatzaille geiegi zeok gurean...

UXOLA

EUSKEREA BILBO'N

Ona emen lau zerrenda, lenengo bietan aurren lenengo jaun-artzeak izango diran eleizen izenak. Lenengo bostetan, eurak, eleiz gizonak antolatu ta danetik lagundu dabe, beste zazpiretan ormak, aulkiak eta kandelak ezik, beste guztia gurasoak eta laguntzailleak antolatu bear izan dabe, ori gure-gure etxean.

Jorraillaren 23'gnean. Sendi Deunean, Anexan.

Orrillaren 7'gnean. Deusto'ko Kepa Deunean amaiketan, eta San Anton'en amabietan.

Orrillaren 11'gnean. Deusto'ko Pasiotarretan amarderdietan, eta Begoñazpi'n amaiketan. Besteak:

Jorrailaren 30'gnean. Indautxu'ko Karmel Amaren eleizan.

Orrillaren 1'ean. Abando'ko San Vicente'n amaikaterdietan eta Espartero'ko Xabier Deunarenean ordu bat eta laurdenetan.

Orrillaren 11'gnean. Iparragirre'ko Pillarean amarretan.

Orrillaren 14'genan. Lurpeko Reyes eta San Fernando'n amarderdietan.

Orrillaren 21'gnean. Asis'ko Pantzeska' renenan amarderdietan.

Orrillaren 28'gnean. Corpus Christi eleizan amarretan.

Beste zerrenda bi oneitan, berez euskal ikastolak ez diran beste ikastolen izenak doaz, Bilbo'ko ta Bizkai'ko errietakoak, Lenengo amalau oneitan euskal ikasketea bearrezkoa dozu:

Indautxu'ko Josulagunetan; Deusto'ko La Salle'n; Derio'ko Apaiztegian; Basauri'ko Ikastetxean; Bilbo'ko Santiago Apostol'en bertako Merzedetako Ikastetxean; baita Hermanitas de la Asunción izenekoan; Euba'ko Pasiotarretan; Barakaldo'ko Regato Alkartearen Ikastetxean; Durango'ko Josulagunetan; Bermeo'ko Kemeldarretan; Markina'ko Merzedetan; Gernika'ko Karmeldarretan eta Zornotza'koetan ere bai.

Beste ogeita bat oneitan, gura leukeana eskatzekoa ostera:

Deusto'ko Sendi-Deuneko Hijas de la Caridad'en; Bilbo'ko Jesus'en alabak; Jesus Maria Ikastetxea; Fica txaideko San Pablo eta Escolapioetan; Artxanda'ko Trucha'n Barakaldo'ko S. Vicente Paul, La Salle'n Sestao'ko La Sallen eta Patronatoan; Ordunko Maria'ren Lagundian; Ondarru'ko Gerrutze Alabenean; Algorta'ko Trinitarioen eta Sorkunde Garbiarenean; Balmaseda'ko Institutuan eta Miren'en Biotzarenean; Zeanuri'n Markiña'ko Institutuetan; Ermu'ko Ongara Ikastexean; Zornotza'ko Karmeldar lekaimenean eta Burzeña'ko Dominikar lekaimenetan.

Geienok, gurasoak alkartuta eskatzeam eskatzez lortu al izan dabe, zuk bere, zure aurren ikastolan olakorik ez ba'leukazu, bat guraso batzuk eta eskatu.

ASTI

GAZTE

Biurritu Maitasunez

Gaurko aldiak ez dira lenagokoak, gaurko gizona ez da lenagokoa... eta biarko gauza guztiak be ez dira gaurko bezelakoak izango. Gizona eta bizitza, urteak joan urteak etorri, aldakuntzan dijoaz. Aldakuntz orreri esker, gaurko egunetan ez da oso gatxa illargiraiño eldutea, eta beste gizon baten biotzagaz gure bizitza luzatu geinkela ba-dakigu. EZ AL DERITXAZUE BENETAN ZORAGARRIA ALDAKUNTZ OIEN TESTIGU IZATEA? Nik bai beintzat.

Orregaitik, gaurko gauzakaz batera edo «konprome» egotea, ezin onartzekoa dala deritzat. Zergaitik?, ba —nire ustez— aldakuntz orren aurka jokatzea dalako. Mundua ez ba'da geldirik egoten... zertarako gelditu naia? Gizonagandik onena itxaron bear dogu, eta au lortu arte, ezin geinke gelditu. Gaurko mundua ikustean, begiak itxi eta geldi egotea, Kolon'en txalupa bategaz Amerike'tara eldu naia izatea litzake.

EZ, GAZTE!... EZ GAITEZEN ALDAKUNTZ ORREN AURKARIAK IZAN! ...EZ GAITEZEN BILDURTIAK IZAN! Gaurko mundua aldatu bear dogu; baiña onerantz. Aldakuntzan saiatu bearko gara, gure bizitzari esanai bat emon gura ba'dautsagu.

Gaurko mundua aldatzeko, barriztuteko bide asko dagoz. Baiña bide oietariko bat bakarra dogu zuzena: gure mundua aberastu aal izatea. Bai, gazte, mundu au aberastu bear dogu... BAINA KONTUZ: GU BAKARRIK EZ GAGOZ MUNDUAN.

Orretarako, gure gizarteko gizonaren tresna iltzailleak zatikatu bearko doguz; abiadaren nagusi izan bearko gara eta maitasun aldia barriro ezarri bearko dogu gure artean. Aurrerakuntza bearrezko gauza dala ez dot ukatuko, baiña askotan gaurko gizona —beti presakaz dabillen ezkero— aurrerakuntzaren menpean aurkitzen da: norberatasun barik, aal bide barik, abots barik... TRESNA BATEN BIURTUTA!

Arkimedes'ek esan ba'eban «Emoidazue laguntzako pundu bat, eta mundua jasoko dot», guk esan geinkie gaur: «ESKEIÑI DAIGUN MAITASUNA ETA MUNDUA SALBATUKO DOGU». Baiña kontuz, gazte: Maitasun negarti batek ez dausku ezertarako balio, maitasun negarti bat ez... besteen zoritxarra ikustean zizpuru batzukaz dana konpontzen dala uste dauan maitasun bat, maitasuna ez da-ta. EZ DOGU NAI MAITASUN ERREZ BAT, MAITASUN BURRUKA-ZALE BAT BAINO!

Maitasun biurri bat nai dogu: gaurko gizartean agertzen diran injustizi guztien aurka jaikitzen dan maitasuna; kuzkeriak jan-bitartean, munduan dagoan gosea gaiztetsiten daben aurka jasoten dan maitasuna; maitasun burlatsu bat; egizko maitasun bat; MUNDUKO GOR TA ITXU GUZTIEN AURKA BIURRITZEN DAN MAITASUN BAT.

Bai, gazteok, biurritu gaitezen maitasunez. Biurritu gaitezen, egazkindun edo «portabioi» bat iru milloi upelada gari ordekoa dala jakitean; illargira dijoazen tramankulu bakoitzaren salneurriagaz, gozaki edo azukrezko berruen milla upelada erosi geinkezala jakitean; itxaspeko edo «submarino» bakoitzean, okelako berrogeitamar milla upelada galtzen dirala gose diranentzat, jakitean.

Iraultza? BAI, GAUR GABEAN GOSERIK ETZUNGO DIRAN GUZTIEN ALDE.

Gizonen arteko eztabaida eta ezberdintasuna guztia bukatzeko ordua eldu jaku guztioi. Munduko aberastasun guztiak, guztionak dirala asmoan izan bearko dogu gaurtik aurrerantzean.

GAZTEOK...! GURE BIZITZA ZELAN BETE...? Munduak iru milloi osagille bear ditu... IZAN GAITEZEN OSAGILLEAK! Eun milloi baiño geiago dagoz idazte eta irakurten ikasi barik... IZAN GAITEZEN IRAKASLEAK! Irutik bik ez dabe naikoa jaten... IZAN GAITEZEN EREINTZAILLEAK!, eta kultura bako lurretatik sortuko jakez, euren goseak asetuko dituen uzta barriak.

GIZONA, MUNDUKO GAUZIK AUNDIENA GODU. Ez daigun barragarri biurtu!

EZKAURIATZA'TAR X.

GIZONAK

Egia da. Gutxi gera; oso gutxi,
etxea ta taberna; lantegia ta beste gizonak,
ez dut esaten lagunak,
Kimelak, jokua ta ardoa.
Bizi geran errian, gure errian;
milla gertakizun igarotzen dira:
Bat, fulanen etxeak erekitzen dira.
Bi; dantza lekuak.
Iru; kultura alkartei eragozpenak.
Lau; SARDIÑA BAKALAU, kantatzen degu.
Ezkuntza, ez da guretzat, folklorea zer?
Eta oiturak? eta kultura?, eta sendia?
Zein gutxi geran, egia, gizajo utsak.
Lan gutxi edo asko egin, ajola gutxi,
ondo edo gaizki ordaintzen diguten...
Telebista izan eskeroz aski degu, izparringia irakurri, apari onak egin, eta zorretan bizi.
Ordularia, ez da gelditzen, aurrera dijoa,
eta, eta gu, beti bezela mingaiña ixillik,
burua utsa, eskuak zintzillik, zankoak geldirik.
Egun batean jaio giñan bezela; ilko gera.
Argia, izarrak, gugandik urruti dabiltz,
emen gabiltz, illunari lotuta, ezer askorik egin gabe.
Amabi ordu igarotakoan, lantegian bizkarra oker geldituko da, eta guri zer.
Emakumeen edertasuna, bere gorputzaren aunditasuna
bereizteko txapelketak eratzen dira, ganadu konkurso bat
ba'litzake bezelaxe, eta guri zer.
Kanpotik, atzerritik etorri dirala eta
erri bateko nortasuna galtzen ari da,
ia ulertu gabetanik, amari, madre deitzen diogu,
ori dela ta, guri zer...?
Guri ere, iltzeko ordua etortzean, beldur naiz ez ote dan gutzaz iñor oroituko; askok ez dute jakingo bizi izan geran ere.
Tristea, mingarria, utsa benetan
gure izakera.
Gogorra joan da gure bizitza, ez gera,
ez ditugu ulertu, erriko gertakizun garrantzitsuenak.
Algara, edo negarra, berdin izango ba'litz bezelaxe,
maitasuna eta gogorkeria bat ziralakoan,
egia edo gezurra esatea berdin zaigula.
Agur gizonak, ez gera ezagutu bizitzean,
il da izan ere, bizi izan bai gera.

RAMON ZAPIRAIN

ERNANI'KO EUSKAL JAIA

Jorrailla'ren 16'an, Ernani'ko Galarreta pelota-lekuan, euskal-jai eder bat ikusi genduan. Jai au bertako ikastolen alde egin zan ta bertako andereiñoak antolatu eben. Goizeko amaiketan asi ta bazkalordurako amaitu zan.

Jaia, ikastolako umeak eta erriko txistulariak asi eben. Ikastolako umeak ainbat dantza egindakoan, Lurdes'ek abestu euskuzan abesti samur batzuk. Onek amaituta, ikastolako iru umegandik «Astoko ta Otsoko»ren ipuin bat entzun genduan, gero Azpillaga ta Lopategi, bertsotan entzun genduzan ta lenengo zatia amaitzeko, Ostolaza ta Mendizabal (ikastolako ume bi) euren languntzailleakaz, arria jasotzen asi ziran; lenengo Ostolaza'k minutu baten amar bidar jaso eban; ta bigarren, Mendizabal'ek 9 bidar denpora bardiñean.

Bigarren atalean, Lertxundi'k abesti ta bertso batzuk abestu ebazan, azkenez, ikastolako umeak dantza naikoa eginda gero jaia amaitu zan. Pelota-lekua, asieratik gaiñezka egon zan, gu emendik, ogetamar lagun joan giñan.

Txalo bero-bero bat Ernani'ko andereiñoai, euren lanagaitik, batez bere Maritxo'ri, ta ea datorren urtean be olako jai ederra antolatzen dauskuen Ernani'ko andereiñoak. Nai geunde ba ikusi barriro alango euskal-jai bat-eta.

URRESTI'TAR ANDONI

Bai, Andoni, geu be an giñan, ta pelota-lekua beterik aurkitzen zan, ez gendun jarrita egoteko sarrerarik aurkitu, ta alan, zutiñik geratu giñan. Ikastolako ume guztiak zerbait egin eta erakutsi euskuen, ta jakiña, eurak pozik eta gurasoak pozago. Guztiok betetu eben ederto euren egin-bearra. Zorionak danori.

Aranalde'tar Joxe Mari izan zan jaiaren aurkezlari, ta bere zuzentza pean joan zan jaia indartzen. An giñanok ikusi genduan zelango lan ederra egin leikeen gure andereiñoak. Umetxo areik gertatzean ez zan egun biko lana izango, baiña ori da bidetik zuzenena umeak eziteko. Umeak era orretara, apurka-apurka, jentearen aurrean agertzeko bildurra galdurik, nortasun egokia artzen doaz. Jarrai ba, Ernani'tarrok, eta ea beste guztiak be egiten daben zuen antzera, batez bere bizkaitarrok.

XABIER

EUSKAL HIT PARADE

Aurtengo lenengo iruillabetekoa.—Danera, irabazle, «Orrela Doa Mundua» Jon Enbeita'k abestua, soiñua ta itzak be bereak ditu. Au da lenengoen zerrenda:

1. «Orrela Doa Mundua», Jon Enbeita'rena.
2. «Zure Begiak», Mocedades'ek abestua.
3. «Amets» Araba taldekoena.
4. «Agur Maria», Estitxu'rena.
5. «Ama Begira Zazu» San Juan Bautista'koena.

Jon Enbeitia'k gogor jarraitzen dau, goiko mailletan ibilli da luzaro ta azkenean danon gaiñetik geratu zenbaketa osoan. Berau batetik, Araba taldea ta Mocedades bestetik, ta Estitxu emendik, a zelako norgeiagoa dogun udabarri onetan. Estitxu'k disko barria izan arren, eta azkenengo zenbaketan sartu bakarrik, lau abesti eder sartu al izan dauz iriullabeteko ogetabosten artean. Zer pentsa aundia emongo dabela uste dogu, bere salketak gora doazen ezkero. Estitxu'ren jarraitzailleak jarri al izango ete dabe lenengo maillan?

Disko barriak.—Estitxu'ren txikerra ta LP.'aren ondoren, lenengo «Antologia Coral Vasca», Uzandizaga etxearena agertu da, ta orain beste LP. bat Iñaki Arriaran'ena, ta azken egunotan COLUMBIA etxearen LP. barria, oraingo au umeentzako ipuiñakaz. Zorionak danori, ta asko saldu!

Udako abestia.—Iñoiz, beste urteetan baiño bizitasun aundiagoa dau aurten. Abesti asko bildu dira, baiña 29 atzera araziak izan dira, arauen barruan ez diralako sartzen izan. Jorraillaren 15'ean amaitu zan arrera-epea, ta orain ikusi bear zer sortzen dan.

Kassetak.—Oskarbi taldeak barri bat atera dau, ta beste bat Algorta'ko «Biotz Alai» abesbatzak, azken au Columbia etxearena dogu.

LOURDES TA XABIER

"Aitor'en izkuntz zarra"

(Asmatzaillearen beraren itzetan)

Aitor'en izkuntz zarra
nai dogu zabaldu
munduaren aurrean
gizonki azaldu.

Baldin gure zaiñetan
odolik ba'degu
euzkaldunak euzkeraz
itz egin bear degu.

Lendabiziko itzak
aurtxo nintzanean
amaren besoetan
bular barrenean.

Itz auek esan zizkan
izketa garbian
gorde euzkera semetxo
biotzan erdian.

Zein izkuntza ederra
euzkera guria
iñon ez det aurkitzen
beste bat obia.

Usai gozodun izkuntz
txukun ta argia
biraurikan ez duen
izketa garbia

Amatxok esan zidan
eriotz aurrian
agur semetxo laztan
laister naiz lurpian.

Euskeraz otoitz egin
neure lur gañian
euskeraz nai det entzun
nik zorionian.

(Jarraituko dau)

KONTU KONTARI

Bi emakume adiskidek alkar topo egin eben kalean. Iru urte inguru ziran ikusi ez zirala ta... ba-euken alkarri zer kontau!

Bapatean diño batak:

—Aizan Pelisa: !Eztiñostan ezer, alako ire maitasun aundi aretzaz! Eure Paco kutunatzaz!

—!Ez egidan aitatu be egin!

—Zer ba? Asarratu egin al ziñien?

—Bai zera! Urte bi donaz ezkondu giñala.

* * *

Anton'ek Koxe'ri:

—Lengunean irakurri najuan, Izaro'ko ugartean txori aundi bat arrapau ebela; gure lurraldietan ez ezaguna. Ta bere ankan erestun bat eroala izki ta zenbakiekin. Urrunetatik etorri ei zuan egazti ori.

Baita be irakurri najuan. Orduña'n beste bat, au txikiagoa, arrapau ebela beste erestun batekin.

Zertarako jartzen jotsezak erestunok, egazti orrei?

—Nundik nora dabiltzan jakiteko. Euri zertarako jarri euela uste dok ba, ezkondu intzanean, atzamarrean daroakan ori, «pajarua»?

* * *

Txoperra etxekandreari itxaroten dago bere belbillakin etxe aurrean.

Andik igaro dan adiskide batek galde:

—Zer egiten dok emen?

—Gure etxekandre sorgiñari itxaroten najaok, bere lagun batzuen etxera eroateko, an brixkan egin bear dabela-ta.

Ori esaten une artan bertan urten zan atsoa, ta entzun egin eban burtzaiñak esan ebana.

Urrengo egunean salatu eutson etxeko nagusiari, burtzaiñaren ausardia.

—Neuk erakutsiko dautsot orreri, etxekandreari bear dan lotsea gordetzen —esan eban asarrekor etxe-jaunak—. !Ointxe berton ganera! Esaiozu etorri daitela, neure despatxura!

Joan zan burtzaiña dardakadan. Nagusiak esan eutson:

—Exeri zaite or Braulio.

Eta arasa batetik Borgoña'ko ardaurik onena atareaz esan:

—Bapo Braulio! Ni enintzan ausartuko ainbeste esaten, baiña egi galanta bota eutsozun gure atso arraio orri. Egiñen ori ospatzeko edan daiguzan dangada batzuk!

Areik asmau eben asmatzekoa! Erromeria!

Bitartean etxekandrea itxaroten egoan, txoperra buru-makur noiz azalduko ete zan, luze eretxita. Otsein ori nagusiak garbitu egin ete eban-edo ikusteko, kezkati urreratu zan despatxuko atera, ta ixil-mixil, erdizka iriki.

Nagusi ta burtzain, euren ardo-edontziak jasoaz kantari ikusi ebazan.

Kanta oneri eragoioen:

Atso zarra bibolin
Ire onak egin din;
Ortzak ere joan zaizkin
Deabru zarra dirudin.
Eta, ia, ia, ia.
Atso zarraren pantasia,
Artzen bajonat illintxia
Erreko donat ipurdia.

ABELETXE

DEUSTO'KO ITZALDIAK

ATZERUNTZ?

Jorrailaren 13'an, Deusto'ko Ikastola Nagusian, Euskalerri'ko gizarte soziolojiatzaz itzaldi bat izan zan, Iñaki Larrañaga itzlari zala.

Bertan erabilli zituan gai sakonak aztertzea zailla izango litzake, alan eta be, auxe esan bear dot, Iñaki argi azaldu zala bere esan-naian.

Euskalerri'ko nekazari, langille ta ikasleak aspaldiko urte oneitan izan dabezan gorakadak eta berakadak azaldu euskuzan, baita gora-bera orrein garrantzia ekonomi saillean.

Beste gauza askoren artean au esan eban: Euskalerriak orain, dirala urte batzuetatik ona, ez dauala ezertariko aurrerakuntzarik egin. Onek esan gura dau, orain urte batzuk baiño atzerago gagozala gaur, bai nekazari, industri ta ikaste arloan be. Iru arlo oneik aztertu zituan, baiña nik, ez dot ikaste arloaren aipamen txiki bat baiño egingo emen.

Itaun bat egin bearrean naiz: Zenbat Ikastetxe Nagusi daukaguz gure errian? Esate baterako Ipar-ameriketa'gaz konparatzen ba'dogu, arrituta gelditu gara, ta gure atzerakadea argi ikusiko dogu. Ipar-amerika'ko estadistikak aztertzen ba'doguz, Euskalerriak gaur, garanez, 20 Universidade euki bearko leukez. Baiña, zenbat daukaguz? Sarritan, bat bakarra bera ete-dagon be galdetzen dogu.

LAGUNTZA LANA

Jorraillaren 17'an, Barandiaran'tar Joxe Migel jauna izan zan itzlari. Joxe Migel jauna, azterketa arloan lan egin dagian, talde bat sortzeko asmoarekin etorria zan, ta au zelan egin eta zer lan izango leuken azaldu euskun.

Lenengo ta bein, erri bakoitzeko oiturak, jaietakoak, jolasetakoak eta abar, galdu edo aztu baiño len batzea izango litzake; lan gogorra benetan baiña, gazteen egin-naiaren neurri-neurrikoa. Arlo onegaz Euskal Kultur Montegi'koak arduratu ziran. Zeuk eskatzen dozun besteko laguntza izan daizula, Joxe Migel jauna!

EDESTIA

Gure au irarkolan dala, aurreko zenbakian esan zanez, Julio Caro Baroja'ren itzaldiak izango dira an bertan. Gaia, «Prespectiva para la investigación de la Historia Vasca» izango da gazteleraz.

Ikasi ta Ekin, aor gure egarria!

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

Gure «Orixe» II

Eta zearbidez **Pio Aita Kaputxino Zauriduna**

Oraingo idazle gazteak

«ORIXE»z ta arana-goiritarren aroaz ari izan giñan lantxo onen lenengo zatian. Bigarren atal onetan, Pio Aitagana igaro baiño leen, bardin daiguzan, labur bada bere, aldi aregaz; edo obeto esateko, aranatarren aroko idazleakaz, oraingoak. Eta argi dagoela, deritxogu gaurko gazteek, be, arein garra ta aurrera-nasa ta gorantz yo-miña eurengan daroela.

Egin oi dabezan idatzietatik ta liburuetatik ikusten danez, gaiak goi-maillakoak ta yakintza guztietarikoak oi dakarskuz, euskeraz eginda. Ta oraingo idazleek, aro areitakoak baiño areago ta ausartiago ta lasterrago doaz orokartasunera (unibersalitatera), era orotariko idazgaiak ta aztergaiak erabilliz, naiz ta gatxenak ta sakonenak ta goienak ta meenak izan. Mamiaren aldetik ta gaien ugaritasun ta ezbardintasun aldetik begiratuz, ori, eguerdiko argia bezin garbi dago; ta laster ta erraz ikusten da. Eta ziñez ta benetan pozgarri da, gazteek egin daben aurrerabide ori...!

Baiñan idaztankerearen alderditik ikusiz, «ORIXE»ren ta garai areitako idazleen aiñatik, urrin-urrin dagozala, be, argi dago. Idaztankeraren aldetik, arein ta gaurko gazteen artean, arte andia da. Egiazko Euskera, baserrietan egoela ta baserritarrek ekitela, iñoen areik beti. Izan, be, orduan, Bizkai geienean ta Gipuzkoa osoan, euskeraz soillik egiten zan. Ta baserritar asko ta asko zan, erderarik ezer be ez ekiana; ta dana euskeraz egiten ebana.

Geiago oraindik. Ba-ziran baserritarrak, euren baserritik ta erritik, iñoz be ta iñora be, urten ez ebenak. Ta aurrekoengandik, belaunez-belaun, artu ta ikasitako Euskera yatorra ta garbia, aldatu barik, erabilten ebenak. Eta «ORIXE»k ta garai artako idazleek, Euskeraren maixu lez, alango baserritarrak artzen ebezan. Idazle zaarrak baiño areago. Idazle zaarrak be bai; ta maitasunez ta arduraz irakurri ta aztertu ta ikasi.

Baiñan oneik, beti be, «eskolatuak» ziran; eta emendik ta ortik ta andik ikastoletan ibilliak; eta zio orregatik erdal-kutsuz yota egozela, uste eben. Ta orregatik, erderarik bapez ez ekien baserritarren billa ebiltzan ibilli, areikaz berba egiteko; ta berba egiñez, atsegin artzeko; ta areingandik euskera yatorra ikasteko. Alan be, idazle zaarrei begiramentu ta maitasun ta gora emoten eutseen beti; ta biotzez emon gero.

Egungo egunean, aranatarren denporetan lezko erririk askoz gutxiago da; ta erderarik ez dakien baserritarrik, be, ez dago. Ba dagoz egon oraindik, Euskera ondo egiten daben baserritarrak; baiñan kaleko Euskerak gaindia artu dau. Ta ez dakit ondo, orregatik bakarrik ete dan; edo beste arrazoien batengatik, be baiña gaurko gazteek, aldez «ORIXE»ren garaieko Euskeratik urrindu dira; ta aldez kaleko Euskerara urbildu. Ortik, nik uste, datorkigula gertagi au: ainbat eta ainbat euskal berba bitxiak baztartzea; ta arein ordez, kanpotarrengandik barriak artzea, kaleak kanpotarrez beteak daukaguz-ta.

Gizarteko gertagietan ta ondorioetan, ordea, kausa bat bakarra ez ei da izaten, zeinbat kausakide baiño. Ona, ene eritxiz, kausakide orreitatik bat edo beste:

Guda ondoan, Euskalerriko alde onetan, ez oi zan euskeraz egindako paperik ataraten; ta gazte euskaltzaleak, zer edo zer, euskeraz irakurri nai ta Euskalerriaren araindiko irakurgai ta paperetara yo bearra izan eben. Ondo egiña, yakiña. Eta iparraldeko irakurgai areik, erdal itzez yosirik oi etozen ta oi datoz; ta nik uste, ori izan dala kausa bat, ainbat eta ainbat erdal itz gure artean artzeko.

Esate baterako, «vacaciones» erdal berbea, euskeraz adierazoteko, aranatarren aroan, «opor egunak», euskal mintzoa erabilli oi eben; ta ortik, «opor aldiak artu», «oporketak egin», t. a. Orduko idazleak, ortara etozen danak, batasuna eginez apurka-apurka.

Orain barriz, «bakantzak» berbea ipiñiz oi dabil gazte asko ta asko. «Bakazioak» ipintea, ez ei yake eder, erdal berbeagaz antz andiegia daukalako; ta «bakantzak» ipiñi ta kito. Ori eder yake; orrek ez bai dauka «vacaciones» erderazko berbeagaz, alango antzik. Baiñan «bakantzak» itza, frantzesezko «vacances» mintzotik ei dator, «bakazioak» espain-erderazko «vacaciones» tik datorren legez, bardin-bardin. Araindiko paperek, barra-barra, erabilli oi eben ta oi dabe berba ori.

Beste esaterako bat. Iparraldeko aldizkariek, noz-gura, idatzi oi dabe esaera au: «ados gare», «ados gatoz». Eta oraingo gazteek onartu dabe ta sarritan erabilli be bai. Eta «ORIXE»k ta aren egunetako idazleek, «ados» en ordez, onelan: «batera gatoz», «bat gara», «bardin gara», t. a. t. a.

Beste bat: «muntatu» mintzoa, frantzeserazko «monter» berbatik datorrena. Ori be, araindiko paperetatik ikasita, ugari darebilte emengo gazteek: «antzerti obra ederra muntatu zuten», «erriko gaiak ondo muntatu dituzte». Dana da «muntatu». Baiñan «ORIXE»ren garaian, orrez ordez, «atondu», «antolatu», «apailatu», «burutu», «zertu», t. a., esango edo eben. Ta «muntatu» iñoz be ez.

Beste gauzatxoa be ekarri gura dot, ikaspide lez. Aldi barri oneitan, sarri ikusi dot esaera au onelan: «Zenbat buru, ainbat aburu»; eta noz edo noz, beste era onetan: «Buru ainbat, aburu ainbat». Baiñan «ORIXE»k ta aren aldiko idazle askok, ez eben olan idatziko; «OIHENART» idazle zaarrak idatzi eban lez, idatziko eben: «Buru bezanbat aburu». Garbitasun txiki bat da ori, garai artako idazleak, mailasunez ta kontuz, begiratuten eutseela idazle zaarrei, adierazoteko; ez bakarrik baserriei ta baserritarri. Onei be bai: ta arei be bai.

Gazteak gauza politak, yakingarriagoak ta era orotariko gaiak erabilli, bai. Baiñan, ene eritxiz, idaztankerak ez areik bezin ondo. Zer dala-ta...? Euskera obeto ta geiago ikasten, burua nekatu nai ez...? Edo sakonago yakiteko, lanik egin nai ez...?

* * *

Eta ganera, oraingo aldizkariek beste gauza polita egiten, be, badakite: «h»ak ta «v»ak ta «w»ak sartzen. Neuri be egin daustee olangorik. Eta ikus, «Zeruko Argia»n, zer egiten dautsoen Intza'r Damas Aitari.

Aita onek, noz edo noz, «Esaera zarrak» sailla idazten dau. Ba gane-ganean, izki andiz, «h» ta guzti, «Esaera Zaharrak» idazpurua ipinten dautsoe. Olan «iñuzente-iñizente» ba'lira legez, egiten dabe; baiñan ziria ez dautsoe iñori, be, sar aal izaten. Danok bai dakigu, Intzar Damas A. «H»ren aurka, argi ta garbi, agertu zala: ta idatzi, be, egin dauela, luze ta yakintsu. (Onek ez dauts neuri iñoz be esan; baiñan ikusten da).

Arana-goiritarren aroan ez egoan olango diktadurarik. «KIRIKIÑO», ordukoa zan; ta itz barriak erabilli, bai; baiñan idaztankeran, bereberea zan ta errikoi-errikoia. Ta Gipuzkoa'ko idazleak, esaterako «Argia» koak, asko ta asko aranatarrak ziran; baiñan osoro libreak ei ziran beti; ta ondo yakin eben, Euskera idatziari errikoitasuna emoten. Olan zaletu ziran Gipuzkoa'ko baserritarrak, «Argia» irakurtzera.

Lantxo onen bigarren egitada au amaitzeko, ona emen berba gutxitan ene eritxia: Oraingo idazle gazteak ta aranatarren arokoak, gaien aldetik, bardintsuak, gure Euskera orokartasunera (unibersalitatera) goratu ta eroan gura-ta... Ortan oraingoak areago yoan ei dira; ta oinkada ta urrats ederrak emon dabez aurreruntz, era orotariko yakingaiak, euskeraz, erabilteko aaleginduz. Baiñan idaztankeran, ene eritxi apalean, aurrera barik, atzerantza egin dabe.

Alan ta be, zalantzarik ez, ekin ta ekin, Euskera gero ta obeto ikasiko ta erabilliko ei dabe. Ta orduan, gaurko gazteak, danean, obeak izango ei dira. Ez bakarrik gaietan (ortan dagoneko obeak dira-ta); baita idaztankeran, be, au, ekiñez, obetuko dabelako ustean ta iixaropenean, esaten dogu. Orregatik arrera on-ona egin bear dautseegu idazle gazteei, euskal elerti-landara datozenean...

Orain oartzen naz, aritik urriñegi yoan nazala. Eta barriro, «ORIXE»ren mistiku-liburura eta Pio Aita Kaputxino Zauridunagana itzuli bearra dodala. Irugarren atalean igaroko naz orretara.

Ta bitartean agur, irakurle, Jainkoaren baitan.

YURRE'tar Yulen a. k.



Amboto'ko Kobean

Euskalerri zaarrean gaude.
Millaka urte pasa da arrezkero.
Millaka aldiz urregorriztu ditu ota-loreak Euskalerriko landa ta malda-gorak. Oianetan kukua milla biber entzun du Udaberriak...
Basoetan bai leoi ta bai otso, bai artz ta bai basurde alkarren arteko burruketan; baiña, denak, gizonaren menpeko izaten asiak...

* * *

Anboto koba-zuloan aztia aztikerietan... Beerago, erria txaboletan.
Mari-gorringo senarraren maite-miñez; senarrak, auzokoa maiteago. Maite du Mari-gorringo'k bere Ursu biotzekoa...
Zeiñek egin ote dio begizko?
Sorginkeria arnasean ere.
Sorginkeria Prehistoriako leizeetan sortu zan ta koba oietan du, aiñ zuzen ere, euskaldunak bere iturburu ta jatorria.

* * *

Illargi gabeko gau illun batean aztiarengana jo du Mari-gorringo'k:
—Dan, dan...!
—Zein da or?
—Ni naiz, jauna, Mari-gorringo...
—Sar barrura. Zer nai den...?
Krisalluak ugari argi-gorri-beltzetan, keia dariola; orma-zuloan ontzaren begi zabal illetargitsuak diz-diz; buru-ezurrak nun-nai; suge biziak eskuetan aztiak, saguxarrak aidean... Ikatz arrastoekin egindako zaldi, basauntz, larra-bei ta bisonteak pareteetan...
Mari-gorringo aztiaren aurrean belauniko:
—Zer nai den...? Orru aztiak.
Leize-zulo barrutik oiartzunak erantzun:
'nai den... nai den... nai den...!
Ozkiri larria Mari-gorringok bizkar-ezurrean goitik beera...
—Ara, jauna, nere senarraren biotza galdu dut...
—Ta...?
—Maite-miñez il-zorian nagoela...
—Zer nai den!
Oiartzunak:
'nai den... nai den... nai den...
Ozkiri berriz ere Marik bizkarrean zear:
—Kutuntxo bat nai dut...
—Zertarako?
Oiartzunak:
'tarako... tarako... tarako...
—Nere senarraren biotza birrerosteko; bere maitasuna berriro nereganatzeko!
—Emango diñat kutuna...
—Bai...?
—Bai, Baiña aurretik leoi-eme baten iru tantoesne bear dizkiñat kutuna egiteko. Ekarriko al dian iru esne-tanto oiek...?
—Bai, jauna.

* * *

Biotza argi ta burua naasi, Mari'k.
Nundik esne-tanto oiek atera...? Nora jo...? Zer bide erabilli...?
Maitasunarentzat eziñik ez da.
Ta Ursua'renganako maitasuna aundia zan Mari'ren biotzean ta bere naia lortuko zuan nundik edo andik...!
Bai orixe!
—Bai, oraintxe gogoratzen naiz, an beian, isaso aldera, ibaiaren beste aldetik ba dala leoikabi bat...
Inguratu zan ara egunsentian ta leoi-emea ikusi zuan erdibi berri zegoela...
Baiña, zer egiñ...?
Nola areri jokatu...?
Egunez pentsaketan ta gauez loak alde egiñ... Ezin atzeman iñundik...
—Kutuna bear dut!
Garraxika dio biotzak.
—Nola lortu...?
Biotzak erantzun.
—Kutuna bear dut...! Kutuna bear dut...! Kutuna bear dut...!
Naimenaren indarrak buruan jo du beiñ ta birritan, eunka bider, millaka bider ...sutarrian burniak bezela ta, aizkenik, buruan argia pistu da.
Illunbeak iges.
Jeiki da Mari oetik artaldera joateko. Antxomeak amaren epelean kokaturik lo. Illebeteko antxume txuri-beltz otxana eskuetan artu du maitekor bularraren kontra, amaren epela antxumeak galdu ez dezan...
—Gaixoa...! Atoz gaxo ori...! Nere maitemiñaren sendagarri bear zaitut...
Eskuak gorri odoletan Mari-gorringo'k: antxume gaxoaren odola. Mari'ren zorionak beste iñoren eriotza du egarri: maitasun zorionaren prezioa, atxume otxanaren erio...
—Ala bear...! Beste erremediorik ez dut...!
Zumezko otarra garbian antxumea artu ta, ba dijoa ibai-ertzean beera leoi-emearen billa...

* * *

Egun-argiak illuna menperatzen... Basoan txoriak egunari agurka.
Mari'ren biotza taupadaka; leertu bearrezko taupadak:
—Lortuko ote dut nere amesa...? Izango ote dut nere eskuetan leoi-emearen titi epelak...? Atzemango ote dut bere esne zuria...?
Leoi zaarraren zantzoak bat-batean ixilarazi ditu txoriñoen txirulirulak, mendiek alkarri erantzuten dioten zantzo ikaragarria...
Dardar Mari'k.
Biotza taupadaka leertu bearrean.
—Ene biotz, baretu adi...!
—Kutunka bearrezko...! Biotzak erantzun.
—Geldi adi...!
—Kutuna bearrezko...!
—Baketu adi...!
—Kutuna bearrezko...!
Leoiak orru berriro.
Oiartzunak erantzun leoiaren orruari... Baso ta oianak orruz bete dira.... Aizea gelditu da adarretan zintzilik... Ostroak ixil... Txotiak lepoa ernai... Enbor zaarreko illunpeetan axariaren belarriak tente...
Auzo guztia bildurrez dardar.
Emakume argal batek bakarrik dirau zutik errege onen aurrean... Belaunak ikara, baiña biotzak indar:
—Kutuna bearrezko...!
—Ene biotz, bildur naiz ta etengo zait gogoa...!
—Kutuna bearrezko!
Aragi-usai gozoa leoiaren sudurretara:
—Au antxume-usai gozoa...!
Aotik lerdea dariola, ezpaiñ-gaiñeko illeak miazten ditu gure leoi zaarrak...

* * *

Mari gorringo ta leoiaren bitartean leiarrezko ur gardenak: erreka garbia... Mari uretan sartu da ta amorraia izutu du: bere izua arraiñak arriazpi batean gorde du... Uraren otz-ikara Mari'ren oiñetan... Biotza taupadaka.
—Ene biotz...!
—Kutuna bearrezko!
Ibai-aldeko usaiak eraginda bere semeentzako bazkariren billa dator leoi-emea.
Mari, ibai-ertza arrapatzeko dago:
—Ene biotz...!
—Kutuna bearrezko!
Ariñ-aringa, leoi-emea eldu baiño leen, legorrean da; bertan otarra laga, saskitxoa bertan utzi, ta ibaitik beste aldera berriz ere... Ura dago orain bien artean. Otarra aurrean leoia Mari'ri begira. Begiak Mari'rentzat ta sudurrak saskiko aragiarentzat.
Usaiak garaipena.
Mari'ri orrua baiña antxumeari kosk. Bi emeak, alkarri begira, ibaia dute esi erdian... Leoi-emeak ez dio Mari'ri begiak gaiñetik kentzen bitartean axtxumeari eldu dio ortzekin... Laurdenerdi bat jan ta ondorengo pusketa bere kabira darama, leoi-kumeen festa, Mari'ri esker...
Ibaien beste aldera iragan, saskitxoa artu ta etxeratu da Mari.

* * *

Bigaramonean berdiñ...
Egunsentirako antxumea otarran, saskian, otzaran...
Errekara eldu da.
Leoiak orru.
Urak pasa ditu Mari'k, otarra utzi ta zugaitzenbor baten atzetik izkutatu da. Ez du uraren beste alderik arrapatu nai...
Bildurrak dardar...
—Ene biotz...!
—Kutuna bearrezko!
Leoi-emeak begiak Mari'ri, ortzak antxumeari...
Bertan laurdena jan ta irulaurdenekin kabira...
Mari'k saskia jaso du lurretik ta, une artan, argi bizi bat sortu zaio barneko illunbeetan: bere itxaropenaren egun-sentia...!

* * *

Irugarrenez antxumea...
Irugarrenez ibaia...
Irugarrenez leoi-emea...
Irugarren aldi onetan, Mari'k otarra arbola lodikote baten ondoan utzi du ta bertan, zugaitz atzean, gorde du bere burua...
Leoi-emeak orru... Mari'ren belaunak dardar:
—Ene biotz...!
—Kutuna bearrezko!
Kalabaza-ontzia eraman du Marik berarekin.
Eldu dio iztarretik antxumeari leoiak ta asi da mauzka-mauzka jaten... Auxe da une egokia Mari'rentzat...
Mari'k eskuak dardar:
—Ene biotz...!
—Kutuna bearrezko!

A. ARRINDA

(Jarraitzeko)

BULZADA BARRIA

Gaurko idazki au, egiz, pozgarri izango al jaku. Neuk, bakarrik, ez dot egin. Irurogeibat ume izan nitun, onen sorkeran, neure inguruan. Landara onen bultzada indartsua zan.

Asenzio eguna dogu begien aurrean. Ta gai oni buruz zerbait esatea, egokia, zanez mungiarrentzat, galdera au egin neutsen neska-mutiltxoei:

Egun au zergaitik da aundia?


Erantzuera bi emon eustezan. Biak dira jatorrak. Te euroi buruz zerbait esan bear dot. Lenengo; «Asenzio eguna aundia da, Jesus'ek zerura igon ebalako».

Erantzuera onen barruan esan-nai ta poz aundia dagoz, egi ori ontzat artzen dabenentzat. Kristo Jaungoiko-gizona, txar guztia zapaldu ta eriotza berbera goitu ondoren, Aitaren zoriontasunean dago. Gure gizon izatearentzat poza dario egi onek. Bizitza onetan, berez, daukagu zoriontasun egarria. Emen ostera, guzurra, zapaltzea ta zuzengabekeririk aski agiri da edonundik.

Iñor zapaldua izaterik nai ez, ta zapalketaren gogorkeria, agiri-agirian, dabil ezeren bildur ta lotsa gaberik. Ta zenbat eta estuago ta gizonak garrasi geiago dagi, ta orretan, bizia amaitzen doakio.

Baiña, ortarako etorri al dira lurrera gizon asko ta asko iñoren gogorkeripean, txarto bizi ta gozez ilteko? Ez, iñola ez. Emengo geure bearra da bizitzaren goraberak konpondutea, gizadiaren barruko anaitasuna ezagutzea ta nauskeri, nai alperkeri, nai beste edozein txarkeri iñausi ta guztien bizitzea edertzea.

Ta alan da guzti be, geuk ikusten dogunez, ta gizonaren arrokeria dala-ta, iñoz ez da izango emen, gizadiari barruak eskatzen dautson zorionik. Ta orduan zer, gizona lurrean, oso osoan pot egindako izaki adimendun tristea izan bear ete dau?



Ona emen, mungiar umeen erantzuera. Kristo iraindua, zapaldua, gizadiaren alde martiri illa, barriro, berpiztu ta Aitaren zoriontasunean sartu zan. Kristo gizon zan aldetik eta gu bardiñak garanez, guk be, emengo zorigaitzak amaitu ondoren, an, Aitarenean ikusi dagigula gure egizko askatzaillea, baiña batez, be txiro jarraitzailleen askatzaillea.

Bigarren: «Kristo artzen dogula da aundia Asenzio eguna». Au, nik orain esateko, aundiegia da. Bakoitzak gozartu, ausnartu ta jarrai aurrera...

Neska-mutiltxoak, zer esaten dautsue Jesus'en izateak?

Erantzuera: «Jesus ona izan zala ta gu be onak izateko».

Erantzuera onen esan-naia zabala ta sakona da. Jesús ona izan zan gurasoentzat ta gizadiarentzat. Ogetamar urte, gazte aroa, oso osorik, gurasoekin bearrean. Au bakoitzak ausnartuko dau bere barruan, ta gaztaro beargin orrek zer esan nai daben ikusi.

Azkenean, iru urte aukeratu zituan, lurrak ezagutu eikean jakituririk onena gizadiari irakasteko. Ta orduko jaunkeriak ez eutson ontzat artu; erria nastau eban, ta gero, onek esan eban: «Kurutzara ori».

Zan guztia emon eban. Egiz, ona izan zan. Ta gure umeak Asenzio eguna aukeratu dabe Kristo'ren askatasunean, lenengoz, eta betirako alkartzeko.

SOLOZABAL'TAR PAULIN



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

Estadua ta gizartea

Gaurko estadua, zelan sortu zan? Ezta ain gaitza oneri erantzutea: Oraingo Estadua, aberatzartean sortua da, ta eurentzako (Gomutara ekarri daigun orain, Franrzi'ko «Revolution» deritzaionean, gudaroste gogorrean «tiers état» ek eukan indarra). Sail au ikasteko oso ondo dago «Clase e Stato nella Rivoluzione francese», Fireuze'ko Sansoni'n, 1.952'gn. idatzitako lana.

Nortzuk dirala uste dozue «Gizarte Eskubideen Aitortzak» egin dituezenak? Nortzuk aberri bateko lege egilleak? Nortzuk bakoitzaren jabetza jarri dabenak? Aberatzartea, burgesi taldea, agian... Indarrik geien euki dauan aroa, onentzat, beti erregetza aldia izan da, monarki deritzaion agintea zanean.

Gaur arte eldu dan gizartea, aberatzarte onek, bere industri aundi ta gogorraren bidez egiñikoa da: Ondorioak gogorrak benetan: dirutza, kapitala gitxienen eskuetan, langilleen morroitza, gizartearen ugaritasuna Europa aldean, gudak edonun, gosea, txirotasuna, gizarte alderdien amorruak, etabar...

Azkenengo AGUR'en ikusi genduan Ipar Euskal Erriko ekonomiaren laburpen bat. Argi jatorku beraren zalantza gizonaren aurrerakuntza osoan. Onegaz, gaurko gizarte egituran, eta gizarte bizitzan, ekonomiak dauan garrantzia argitu nai dot. Danok konturatzen gara: ekonomi on bat derrigorrezkoa da, Estadu batek ukatu nai ez ba'dau, edo ta bere burua agertu nai ba'dau.

Politika saillean ari diranak, beti, ekonomiaren garaitasunagaz jokatzen dabe, edozetarako lenengoa dan ezkero.

Estadu batek bere lekuan jarraitu nai ba'dau, ilterik ez ba'dau gura, gizartea, ikustea ta ikastea baiño ez dauko, ta garai bakoitzean, bertako ekonomi, gizarte, erlijio, ta beste milla buztarrigaz lotutako maillakaz jokatu bearko dau.

Begira onetzaz zer diñoskun Jean Bodin'ek: «Un des plus grands et peut-etre, le principal fondement des républiques, est d'accomoder des lieux, des personnes et du temps». Au da, Estadu baten bideak onak eta onartuak izatea nai ba'dabe, errikoen erara biurtu bearra baiño ez dabela. Emen «république», aberria esan nai dau. Eta orretan gagoz danok: Agintza batek, sendo jartzeko, erriaren baimena ta naimena bear dauz. Erria ez ba'dago agintariakaz, edo, erriko geienak agintaritza ontzat artzen ez ba'dabe, ezin leike izan luzaroko. Onela obeto aitzen dogu Montesquieu'k bere «De l'esprit des lois»eko XIX idaztian, IV atalean esan ebana: «Plusieurs choses gouvernent les hommes: le climat, la religión, les lois, les maximes du gouvernement, les manieres: d'oú il se forme un sprit géneral qui résulte».

Argi dago eta obeto ezin azaldu: Gizonak lendakaritza, zuzendaritza bat bearrezko dabe euren artuemonetan, ez urrunekoakaz bakarrik; baita euren artean, erri barruan ere. Sarritan lur alde txiki bat naiko da, alkar ikusi eziña sortzeko. Kondairari begirakada bat emon, osterantzean. Eta ez joan urrutira. Begira azken amabost urteak bakarrik.

GARATEA

Irlanda'ko burrukak

Irlanda bi pusketan dagola guziok dakigun albistea da. Irlanda guzia bat izan ordea, eta ez dauden bezela bi, Eire ta Ulster izenekin. Ulster onek zazpi probintzi ditu, euskalerriak ditun bezela. 1.920'gn urtean lortu zuten irlandarrak askatasuna, bealdekuak, goialdekoak ingelesen agindupean gelditurik. Eman zioten alako autonomi bat, ta arrezkeroz, orain artean bizi izandu dira, naiz ta alkar ezin ikusiaz, baiñon iñor il gabe.

Irlanda bekoa askatu zanean, mixeri ikaragarria sortu zitzaioten. Orregatik, millakak igez egiñaz norteamerikara ta beste lurraldetara. Ingelesak oso argi ebilli ziran ondoren, Ulster orta millaka ingeles sarturik, ta orrela milloi ori mayori gelditu beste milloi erdiren jabe.

Irlandarrak batasuna lortzeko egin dituzten alegiñak, guziak bat, ta orrela irten ingelesen menpetasunetik, alperrik izan dira. Munduak jaramon gutxi egin zioten, naiz ta arrazoi aundia izan. Zer gertatu da arrezkeroz? Guda, alkar iltzeak eta gaur egunian ikusten degunez pakearen aztarranik ez dauke.

Ingelesak betiko leloa daukate, esanaz, alegia mayoriak ez duala nai Irlanda'kin batu. Ulstertarrak inglesakin batean nai dutela bizi diote, ta katolikoak ostea Irlanda bekoakin batu nai dutela eta ez ingelesen menpean egon, lur guzia Irlanda delako.

Jakiña, protestanteak argi ikusten dute, Irlanda'kin batu ezkero, aienak egin duala, denporaz katolikoak jaun ta jabe izango diralako beren aberrian. Protestanteak baidakite ere, baldin batu ezkero guziak bat, gero berak kokilduta bizi bearko lutekela. Orrek emanten dizkie buruko miñak. Ingelesak pakea nai dute, laboristak emendik amabost urte barru askatasuna emango diotela eskeintzeraiño. Konserbadoreak ordea, ezetz, ta ortan ilketak egunero gertatzen dira, ta, ausi ta kiskali etxeak.

Aita Santu Adriano IV'k, 1.195'garren urtean orduko batikanistei eman zien Irlanda'ko agintaritza. Geroztik ordea, urte asko igaro dira, bien bitarteko ezta-baidak ta burrukak sortuaz. 1.920'garren urterarte, ta gorago esan detan bezela Irlanda bekoari askatasuna eman arte, goiko zazpi probintziak protestantien mende gelditurik. Adriano'k etzun siñiztuko gaur zer gertatzen dan, ikusi bazun ere! Onez egindako lanak, uts gelditurik. Dakigunez, katolikoak sendi ugariagoak dituzte protestanteak baiño. Siñismen geiago dituelako, ta ezkonberri batek semeak mundura ekartzeko LEGEZ egiten dituztelako ezkon-berri baten lanak. Protestanteak ostea, seme gutxiago ekartzen dituzte. Zergatik? Zergatik izango da, lanak besteko egiten dituztelako. Begira Italia'ri, emen sendiak ugariak dira, batekoz beste beste erlijiokoak dituztenak baiño geyago. Berdin Españi'n, ta orregatik Irlanda'n ere berdin.

Ulster'en izanik, irutik bi protestanteak, gutxigo dira katolikoak. Orra or akatsa. Mayoria izanik protestanteak nai dutena egin. Zer gertatuko litzaioke Ulstertarrei, baldin katolikoak lortuko balute beko Irlanda'kin batzea? Ordun, beko katoliko oiek goruntz joango lirake, ta denporaz ugaldu ta mayoria lortu. Bien bitartean ordea, bai ingelesak eta berdin Ulster'ko protestanteak garbi ikusten dute beren azkena, ta orregatik traba asko jarriko diete katolikoeri.

Gero, esango degu Batikano'ko azkenengo Konzilioan gauzak batzeko alegiñak egiten ari dirala. Katolikoak protestantiekin batuko dirala denporaz eta abar... Begira or ze nolako batuketak, alkar ezin ikusiaz, ta alkar burrukan tiroka ta abar. Batuketak egiteko bi minori oietan, pizti ederra bai-dute Ulstertarrak, dalako Presley apaiz orrekin...

Ez gera arritzen Europa'n zer gertatzen dan ikusiaz, beste alderdietako konponketak utzirik. Aberri geienak, baldin aundiak ba'dira batzuk, aunditasun ori lortua izan dute burrukan ta menperatuta minoriak. Minori oiek besteren menpean bizi dira, naiz ta menpeko izan, ezin dute aintzat artu iñoren menpetasunik, naiz ta burua makurtuta iraun urteetan, beren siñismenak biotz barrenean gordeak dituzte, egunen batean arroari adierazteko, ez dirala berak ezarritako asmokoak, eta ez dutela nai berak aintzat artzen ez duten aginpiderik.

Oraindik gertakizun aundiak ikusteko gaude irlandarren artean. Ingelesak emango ba'lioteke askatasuna, Irlanda guzia Bat baturik, gero Ulster'ko mayori orrek, zer bideri elduko liokenik ez dakigu. Txakurra katez lotuta dagon bitartean ta zaunkaka, baldin katea austen ba'du, zer gertatuko da? Alkar kosk egin ta burruka aundia sortu bien artean. Bestetik baldin Irlanda'ri Ulster eman ezkero, gero protestanteak, asko iges egin bearrean izango lirazke; Ez komeni ori ordea ingeleseri.

Burauste ugari ekarriko ditu burruka orrek. Burrukak iñoiz bukatu ezin diranak, Vietnam ta Israel'en bezela.

E. OZKIN

«Etorki'ren» Eragiña

Onelaxe dio «Etorki Ballet»ari buruz Johannesburgo'ko izparringi batean, 1972 III-22'gnean, Daniel Raeford idazleak.

Auxe ematea zor nizuen, onen aurreko idazkian agindu nizuetenez. Ba-dirudi idazle au guztiz txorabiatuta gelditu dala gure erri zarraren aintzintasunaz, gure folklore ta oituraz. Olakoetan, guk garrantzi gutxi ematen diogu sarri gureari. Utzi dagigun, beraz, bera mintza dedin, arrotza, urrutietako arrotz bat mintza dadin. «Rich heritage of the Basque» du idazkiak idazpuru edo tituloa. Ara emen:

«Donibane Loitzun'go «Etorki Abesti eta Dantza Talde» onen azalpena ikaskai berezi bat da etnien kultura eta folklorez jabetu nai duten ikasleentzat. Baiñan, ori, ta bide batez, guztiz interesgarria da soiltik arratsalde on bat igaro nai dutenentzat.

Bereziki aipagarria da abestia, lau eta sei abotsetan abesten dituzten abesti zaarrak, naiz berriak. Trebetasun osoaz erabiltzen dituzte dantzaldiak (eta bear bada profesionalki erantsitako osotasun geixeago bat, kaltegarri litzaioke bereziki erritar dan gai oni) gar eta lillura aundia du, eta Auñamendi Sorkaldean bizi dan linguistiko talde bakarra dan erri onen agerkari apur bat da.

Arriturik egondu nintzan, adibidez, «Odol Zaar»en erabiltzen dan esan naia edo sinbolismoaz, tribu baten buruzagi danaren eriotzaz nolaz ongarri zitzaiokean Euskal lurrari, alegia. Asia Txikia'tik etorritako gaia au? Onelako oitura edo «ritoak» Brontze Aroan erabiltzen zirala, ziur gaude.

Egitarauen oartxoak baiezten digu: «Usterik siñisgarriena da —dio— atzerritik etorritako jendeek, Brontze Aroaren asieran (Jesukristo baiñon bi milla urtez leenago) Asia Txikia'tik ekarria dala».

Txit interesgarri deritzaigu etnia-ikasleentzat adieraztea, antz aundia dutela aintziñako euskal soiñuaz jotako eresiak, eta urratsak, eskoziarrak euskaldunen geroztik erabilllitakoekin. Euskal-Errietako Maskaradakin erabiltzen diran dantza batzuek, ba-dituzte urrats zail-zaillak, ez oso ezberdiñak eskoziarrak ezpata-dantzetan erabiltzen dituztenekin. Eta bere izkuntz ixilean, salto eder batez, goraiziak dirudian salto batez, baliatzen zaigu ballet berria.

Penagarria da bakar-langilleak (solistak) ez ipintzea egitarauan. Ez bai-nazute gauz argitasun emateko nortzuk ziran gazte burutsu aiek, ain errezki eta ain mamiturik alako tresna arrigarriak jotzen; txitua, aintzin-aintziñako irutxulodun flauta; zaar-zaar dan perkusionezko tresna, izenez txalaparta; eta beiaren adar biz egindako aizezko instrumentoa, Alboka.

Arratsaldeak (jai-saioak esan nai du) baditu ere abesti berri-berriak, euskal gaiei buruz bere zuzendari dan Felippe Oyhanburu'k, jator koreografiatuak.

Ur eta Lur, agerkizun edo estanpa ernagarri bat da itxastar erritxo batean. Auxe jolasgarri eta betegarri margoz gaiñezkatutako amaiera bat jaialdiari emateko».

Au irakurririk nik neronek ezin bada ezer geiago ipiñi, aski bait-da bera.

Orain «Etorki» taldea Brasil'en dabil. Ango berriak jaso arte, bada, irakurle.

UXOLA

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

Apartado 1.510 **BILBAO**

Izen - abizenak .....

Bizibidea ta lana .....Urrutz .....

Zuzenbidea ..... Urrutz .....

Erria ..... Eskualdea .....

Bidali egidazuz arren reenbolsoz jasotzerakoan ordaintzeko / illeroko amabi epetan ordaintzeko (1)

- ☐ AZKUE'REN IZTEGI NAGUSIA (Ale bi)
- ☐ LABAYRU'REN BIZKAI'KO EDESTIA (Amar ale)
- ☐ GOROSABEL'EN GIPUZKOA'KO JAKINGARRIAK (Lau ale)
- ☐ AZKUE'REN EUSKAL ABESTI TXORTA (Ale bi)
- ☐ EUSKALERRI'KO EDESTI-LUTELESTI IZTEGIA (Ale bi)
- ☐ LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA (Ikusgarriz betea) (Amar ale)
- ☐ R. I. E. V. Euskal ikasketen bildumea (26 ale)
- ☐ MORET ETA ALESON'EN NAPARROA'KO EDESTIA (Zortzi ale)
- ☐ KEREXETA'REN ARMARRI TA IZENEN IZTEGIA (Lau ale)
- ☐ EUSKAL GIZA-IKASKINTZA (Erriarteko lenen...) (Ale bat)
- ☐ GIARD'EN BILBO'KO EDESTIA (Lau ale)
- ☐ MOGEL'EN PERU ABARKA (ele bitan) (Ale bat)
- ☐ GARMENDIA'REN ITXAS IZTEGIA (Ale bat)
- ☐ CALERA TA BUSCA'REN EUSKAL SUKALDEA (Ale bat)
- ☐ BILBO'KO ATHLETIC'AREN EDESTIA (Ale bat)
- ☐ LAFITTE'REN AZKUE-IZTEGIARI EZARKETAK (Ale batzuk)
- ☐ Euskal Jakintzadun idazti onein edo batzuen barri nai neuke jakin bakarrik.

OARRA: Idazlan bakoitzetik ale guztiak erosi bearko dira, ta ez da onartuko bakoitzetik ale banakak erostea, eskatzean ez ba'da bestera azaltzen.

NOIZKOA: IZENPENA:

(1) Zear-marratu nai ez dana.
Illeroko ordainketak ezin izan 200 laurlekotik bera.

ERRIETAKO BARRIAK

Bilbao

BARRIRO UME ZINEMAK

Gabon ostean ume zinemak zirala-ta zerbait idatzi neutsuen. Ordukoagaz jarraibide, igaro barri dan aste Santuan berbera izo iaku. Umeentzako bete-betekoak diran berein pelikula garbiak izan doguz ori bai, baiña gazte ta garakoak ere alaikiro ezeze onuraz ikusi leikeezenak ere bai.

Esate baterako, nire lagun bategaz ikusi neban Kanada'ko «abere basatiak» deritzona, zelai, beelur aintziratsuak, itxas-txal beteriko iparraldeko itxas-ertzak, muga-gabeko mendiratei edurtsuak t. a. begiztatu genduzan.

Oneitariko zine-filma batzuk biotza atsegindu ta irudimena bizkortu dagigue. Bestetzuk, au be bearrezkoa danez, adimena ornidu. Geienetan ez-jakiña, ezaun-eza be izan oi da-ta, ornitze au zeregin bikañenetarikoa dogu. Gaur eguneko ikaskizunak gaiñera umeekaz batez be elburu ori lortzera jo daroe: «Atsegin emonez eskolatu». Ta aur-ikaskizunaren Psikolojiak dakarsan arauak jarraituz, ikusmenentzumenaz-ta eskolatzen daragoioe. Lorturiko arnariak ere ezagunak doguz.

Arazo onegaz alkarturik dagon bigarren zatia laburkiro azaldu daigun orain. Urtean Gabon eta aste Santuan ospaturiko jaietan ume ta gazte, dan-danok txestatu oi doguz bai Bizkai'an baita Araba'n ere zinema garbi oneik. Zergaitik ez urte osoan? Ta gure ikastoletan? Donosti'ko Edili'k ba-daukaz orretarako filmak.

PORTUGALETE'N JAZORIKOA

Bertatik oraintxo Portugalete'n zine biekaz jazorikoa mintzatzera noatzue. Beste batzuek bear bada euren lepotik ikasi daien. Jazokizuna ez ei da barria, lendik be zio bardiñakaitik diru zigorraz galenduak izan bai-ziran. Oingoan ordain-saritzat, bakoitxari, 75 milla laurleko bota dautsoez.

Zinema onein erruak bizpairu ei dira. Irabaziak iruzurrez emon eta onetarako bietariko txartelak egin eta banandu. Agirizkoak batzuk ta barruratukoak besteak. Txarrena dana baiña erriko gaztetxuei zinema ateak pare-parean zabaldu eutsoezan filma debekatuak, irudipen lizun-zantarrak ikusirik biotz-barneko gentza kendu ezezik zikinkeri ta gordinkeriaren zaletasuna euren biotz ezi bakoetan betiko erein leikezanak seguru-asko opaturik. Au da negargarria ta egiz zigortzeko zio benetakoa, gure gaztedia ezi ta zuzendu bearrean ondamendira daroan ereti kaltegarria.

Gurasoak, gaztedia onbideratzeko, zuetandik lenen ta bein kristautasunezko erro ta eusmen onuragarriak artu bearrean dago. Beti zur ta zain iraun, ta semetxuen urratsak, lagun-adizkideak ta jolas-aldiak jabon egizuez arren.

Gaztedia galdu ezkero ba, ta Euskalerrian bardin desakegu, bereak ezeze Erri osoarenak ere egin dau.

ARREGI'TAR JOSU

Usansolo

ITSUKERIA

Itz gogorra, baiña benetakoa, Itsukeria, bai; orgi dagoana illunpean ipintzeko egiten dan lana. Ainbat aldiz esan dogun lez, erdeldunduta egon da gure auzune guztia, orain urte gitxirarte.

Euskaldun askontzat, zoritxar ori pozgarri izan dala esan geinke eurak artu dabezan bideak ikusirik. Zer besterik esan leiteke, euskeraz erderaz baiño obeto jakin eta, gure oitura, izkuntz ta abar ukatzen dabezanakaitik? Noizik ona da euskera arloan jokatzea, gure arnas ta gurari guztiak gure nortasunaren alde ipintzea, politikeria egitea? Zer dala-ta, gure euskerazko meza, euskaldun sendi zintzoak, politikotzaz artzen dabe? Norenak dira sator lan oneik?

Bai, sator lan ederra egiten dakie, itsukeri zital negargarri bategaz ekin ta ekin dabiltzanak, baieztea gure artean sartzen.

Azken ekiñaldia, gure aurtxoen lenengoz Jaunartzea dala-ta. Ez dira asi ba, zergaitik euskeraz egin bear dan, esaten? Ta lan ori dala-ta, siñistu leiteke, euren umetxiaro maitasun aundienagaz euskeraz egiten dautseen gurasoak, garai au eldu danean, euren aurtxoari euskeraz lenengo Jaunartzea egitea ukatuko dautseela, ta erderazko meza barruan egingo dabela? Noiz arte Jauna, zigorkada oneik?

Zer egin dau ba, gure Erri gaixo onek, ordainketa au artzeko? Euskaldun zintzo diran biotz guztiak, negar malko dariola izango dirala uste dogu, zoritxarrezko barri oneik irakurriaz. Ta zer egin geinke, itsukeri zital ori gure auzuneko euskaldun begietatik aldenduteko?

Gure biotzetan gorrotorik ez dogunez, ta bai zuzen ta lege bidean Euskal-Erria ikusteko ta bere naiak lortzeko, alegiñak egiñaz, Jaungoikoari, biotz apal ta beroenagaz gure samintasun guztia azalduko dautsagu otoitz au egiñaz:

ILLUNPEAN NEKATURIK DAGO GURE ERRIA; JAUN ERRUKITSUA SALBA MAITASUNEZ GURE ERRIA.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Tolosa

LAPURREN ZERU

Iñundikpait, Tolosa izango lapurren zerua. Joan diraneko urte auetan ez da egunik lapurretarik gabe. Eta zenbait gauetan bi eta iru tokietan. Lengo batez Udaletxe'tik ogeitamar metrora, jan denda batetik. Bestean, soiñeko denda bateko agertokia puzkatu erriaren biotzean, eta zeuden jantziak eraman zituzten. Biltokiak, etxeak, dendak... nun ez.

Neurri extuagoak artzeko ordua bada, jaunak.

«IKAS» IZTEGIA

Iztegi bikaiña. Amar milla itz gipuzkoarrok eta bizkaitarrak maizenik erabilliak. Urrats sendoa euskal batasunerako. Joxe Antonio de Montiano ta Joxe Ramon Urkijo'k antolatua. Erakusle ta laguntzaille Carmelo de Etxenagusia eta Xabier Peña, au tolosarra eta adiskide. Zorionak, Xabier!

Liburuxka au egoki etorriko zaio euskera ikasi nai duan edoziñi. Erosi, beraz, ez zaizu damutuko-ta.

BIGARREN ANTZERKI EMANALDIA

Jorrailla'ren 25'gnean asi eta Garagarrilla'ren 5'gnean bukatuko. Erderaz zortzi talde, euskeraz iru. Gure zabarkeriaz, euskal taldeak gerturik ez zeudelako. Euskerazkoak auek eta onela jardungo.

Loreilla'k 2.—Aizarna'ko «Ertziña» Taldea.—«Bizia bizi truk».

Loreilla'k 22.—Zaldibi'ko «Iztueta» Taldea.—«Gizon zuzenak».

Garagarrilla'k 5.—Urnieta'ko «Egi-Billa» Taldea.—«Kiretsa dario».

Beraz, euskeraz sortutako lan bi; itzulia, bat.

IÑAUTERIA'RI OMEN-ARRIA

Iñauterietako sariak ematerakoan, Tolosa'ko Iñauteria'k oroigarri bat bear lukeala itzegin zan, omen-arri bat. Nolaz adierazi gure Iñauteria'k duan berezitasuna? Geldi-geldi burutzeko gauza auxe. CIT'en jasoko dira iritzi guztiak. Beraz, tolosar guztiei, artista izan edo ez, dei egiten zaie iritziak bidali ditzatela, ea danon artean Iñauteria'k merezi duan oroigarria asmatzen degun.

TXAPELA NORK OBETOGO IPIÑI

Auxe izan da «Txinparta» Biltokia'k eratutako sariketa. Irurogei txapeldun azaldu ziran. Gazteenak, zazpi urte; zaarrenak, larogeitazortzi. Epai-maiekoak auetxek: Julian Elosegui, Antxon Elosegui (CIT'eko lendakaria) Santos Mokoroa, Iñaki Linazasoro eta alkarteko bat.

Sarituak: 1. Mikel Azaldegui («Auxua») 2. Kandido Muñagorri.—3. Jesus Ansorena.—4. Juan Jose Elosegui.—5. Juan Jose Arzuaga.—6. Urruzola'tar Estanis.—7. Luis Artola.—8. Jose Mari Orbegozo.—9. Txomin Garmendia (Bertsolaria).—10. Laborde'tar Erramun. Ogei sari arte.

Saria eman zitzaien ere: Ignacio Lope'ri, zarrena zalako (88 urte). Gazteena Luis Angel Korte (7 urte). Txapel aundienari: Jose R. Zabaleta. Errikoen arteko zala jakin gabe etorri zan Tabira'ko Luis Elosegui Bilbao'ri, eskerrez, sari bat eman zitzaion.

Pazko Bigarren ontan, irratia eta telebisioa gurekin izan genituan. Tolosa txapel erria izan.

UXOLA

Zeanuri

Gure alkarteko euskaldun apaiz barria. Pillareko Andra Mari'ren eleizan, José Mari Azkoaga'k lenengoz mezea, Jorrailaren 3'an. Jentez beterik eleizea; pozik euskeraz entzuten Bilbo'n bertan be. Zergaitik ez euskeraz? Bear bada ez da Euskalerria?

Eskerrak Jaungoiko'ari Bilbo'n jentea asko itxartu da-ta. Jose Mari bera bat, gurera etorri yakun euskera ikasteko, ba-ekian zeozer, euskerea ikasteko, ba-ekian zeozer, euskera euskera giputza barriz. Gogotsu artu eban. Abade izateko Euskalerrian, ez dala naikoa biotzbiotzez gure lurra maite izatea, ez ba'da gure izkuntzea ondo jakin eta gure bizimoduz bizi izatea baiño. Zorionak, biotzez jarraitu euskalduna izaten, eskatuten doguna lortu dagigun.

ASTE SANTUA

Ba-dogu oraindiño errian jente asko. Uste izan dogu, igarotako urte oneitan asko izan dirala gure inguruetatik joanak, batez bere baserritarrak. Egia da, ba-doguz baserri asko utzituta, batez bere erritik urrintxo aurkitzen diranak. Baiña Eguen eta Bariku santuz, Andra Mari'ren eleizea beterik ikusi izan dogu. Eleizkizunak ederrak egin dabez, berbaldiak bere laburrak, baiña gauza asko eta ondo esanak. Onetan dogu ba trebea gure txanburu jauna. Alkar maitasunatzaz mintzatu eban, biyoakoz ba gure zorionak.

IRAKURLEAK ESANA

Bilbo'ra ura eroatea dala-ta, or dabizan kanbioi nagusiok, bazterrak eta erdiak be apurtu eta zikindu dauskuez. Bitartean zelango bideak eskolarako ta eleizarako eta abar. Ez goiaz ura eroatearen kontra, ez orixe, baiña apur bat konpondu ta garbitu, ez ete dago egin bearrik? Lanak amaitu orduan, egingo dabezala, baiña ordurarte erriagaitik, inguruagaitik doguzan egin-bearrak geure buruan durundua egiten dauskue; alegin bai, gauza andirik ezin egin. «Pobreen errazoia ta urriñeko egur igerra arpelik galtzen ei dira». antziñeko esakun zarra da-ta. Ta amaitzeko Arrese-Beitiaren olerkitxo bat:

Aiztu dagiguzan geure artean izan diran asarreak.

Izan gaitezan anaiak eta euskaldun zintzo garbiak.

Legortu daizan bere negarrak ni jaio nintzak erriak.

GORBEITARRA

Galdakano

ELIZA BARRIA?

Ainbat urte dira galdakanotar on batek lur zati eder bat emon ebala Bengoetxe'ko auzunean txadon barri bat egiteko, ta gerotxoago arri ta orretarako bear diran etxegai asko leku ortara bilduten asi be bai, laster zerbait egiten asiko zalakoan baiña, bear zan txindirik ez egoalako edo, geroko, geroago egiteko geratu zan auzune ortako kistar zaleak ain bearreko eben txadon ori. Eta, bearreko esan dogu, ta orretara dalakoan gara, tamalez berakada andiya egin dau, uzkurtz saletasunak gure erri onetan. Zorionez ba-gara ainbat benetako kistar zaletasuna dogunak, siñizkera, ori ikusten dogulako ezetariko zalantza barik, gizabideri zunena ta beraz benetako azkatasuna ta zuzutza lez. Orretarako barriz, toki egokia bear da eta auzune onek, Bengoetxe'k, eztau bertako ikastolan azpian orain ainbat urte elizatzat gertu eben areto txiki bat baiño, baita azkenengo urteetan oso geitu, ugaritu izan auzune zabal ori.

Oraingoan baiña, egiztatuko dalakoan gagoz, eskerrak, esan geinke auzune ortan dauken apaiz jatorrai, auzi ori benetan artuaz, kementsu diardualako bear diran gertakizunak egiten, askok uste daben baiño lasterrago antziñarik, jasota egon bear zan txadon ori, amaituta ikusteko. Eta orretarako, izango dan txadon orren egitamu-marraskiak etxegintzalleai emonak ei-dira, aditaldu ta laster baten egiten asiteko amaituta ikusi gura litzaken eliza. Orretera izango al da.

ERIOTZA

Jorrail onen 11'gn, il zan errian guztiz ezaguna zan Oleaga eta Arteta'tar Mikel gizon argi alaia, irurogei ta amazortzi urtedun zala.

Ezaguna esan dogu ta alantxe zan Mikel, ez egoan errian ezta Bizkai'ko beste errietan be, bera ezagutzen ez ebanik, eta ez, txarkeriak, gaiztakeriak egiñagaitik, bere alaitasun ta askori ongarri ugari egiñaitik baiño, batez bere berton izan genduban guda zital ostean, beti egoalako gertu, edozein zemaitu, atzillotu edo espetxeraturi laguntzeko. Orregaitik, iñoz esan, euskun irribarrez: «iñoiz alkate izan nai ba'dot autezkundeetan, errizaleen autarkiz urtengo dot garaille» eta alantxe izango zan, orretariko bateri baiño geyagori, gizontasunari begiratuta bakarrik, mesede asko egiña zalako.

Gogaiz bakaldarra izan zan bere bizitza guztian, baiña galdakanotar jatorra, euzkera ta gure oitura garbien zalea ta, danen ganetik, GIZONA. Goyan Bego adizkide zintzoa, eta laguntzen dautsegu atsekabean bere emazte, seme-alaba ta senide guztiei.

BASA-JAUN

Bermeo

Arrantzaleak egualdi onen zai; Aurtengo negua gogorra izan dana ikusi ondoren, arrantzaleak aurkitzen gara berriz, udabarri'ko egualdi onen zai. Guztiok dakigu euria eta aizea oso txarrak dirala langille guztientzako, baiña batez ere baserritar eta arrantzaleentzako. Guk ondo dakigu aizeak zenbat kalte egiten dauskun gure itxas-lanetan. Aste bat euki dogu ona, eta aste ontan antxoa pizka bat izan da. Orain barriro aizea, ta Joxe Migel'en batela txitxarroa ta berdela. Eldu dagiazala ba, egualdi onak eta antxoa ugari arrantzale jendea poztutzeko eta erriko ekonomiak igoteko.

Bermeo'ko Abes-batz taldekoak lanak aurreratutzen dabiltzaz. Iralla'n doguzan erriko jaiatarako umeen euskal-jai bat antola gurean. Lanok aurreratu bearra dago iezkoa ikusirik, gauza guztiak prest dagozala, eta azkenengo orduan zigor bat bezela, ezetza agintarien aldetik. Ia ba, arazoak aurretatuta baietza emoten dabien aurten.

Epaillaren 25'ean Elgeta'n izan giñanok pozik autortu bearra dogu, batzar ederra izan zala, batez ere an zeuden jendetza ederra ikusirik. Neure ustez eneban esango AGUR'ek orrenbeste idazlari eta laguntzaille daukanik. Ia ba danon bultzadagaz zerbait lortzen dogun euskeraren alde. Oso egoki izan iat an ikusi neban guztia. Euskalerri'ko zar jakintzuen itzak entzutea ez da gauza egunaro jasotzen dana, batez ere Basarri bertsolariaren itz ederrak, onexek dauko jakituria ta modua jendean aurrean. Urte askotan jarraitu bardin Basarri.

Zabalondo, Zarraga ta Estitxu'ren abestiak ere oso politak eta errikoak izan ziran. AGUR onen bidez nai dodaz agurtu Elgeta'n ezagutu nebazan lagun barriak, Zestua'ko Sagartzazu senaremasteak.

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDOIN

Zaldibar

EUSKEREA BAT BAKARRA DA

Baita ez bairik gabe iñorek ukatu ezindako egia auxe da.

Tamalgarria, negargarrizkoa da ludi osoan edergaillutzaz obetsita dagon izkuntza bat, gure euskera maitagarria, adore biziz ezerestatu gurean dabillan ekintza.

Beronen aldezle gogo eta asmo zintzoakin gabiltzanontzat mingarri jaku jakintsu barruti baten atera daben «canpaina» maltzurkerizkoa, ba da uzterik gagoz, atzerritik etorri eta ekarri dogun notintzari egokitzen dabiltzala, oinkada luzeakaz, antolatuta dakoen «erderanto» ori.

Nor ez da ba arrituko ikusirik «Iberduero» berak be ez dituan «H. P.» guztiak ezarri dautsoezala len eguan baiño apaiñago izango dalakuan?

Azketzi Jauna: arren erruki izan gaitezan beti gure asaba zaarak egindako langintza onurakorrak oinperatuaz, euroen buruak goraldu gurarian dabiltzan orrekaz.

Gure euskerak ez dauka ezertxoren aldakuntza bearrik, ba da lurralde onetan jaio eta bizi garanontzat guztiz pozgarria da berau mintzatzia, izkuntza bardingabea, biraoentzat ostaturik ez daukana ta bere oiñarria kemen osoakin gordetzen dabena, baita ziur gagoz amaigabeko gizaldietan be errotsu iraungo dabena.

Baiña zintso adierazota, negu aldi ituna aurkeztu jakun aitamenean dodan «alfabetaziño»ko «canpaina» orren bidez aukeratu euskoen ekaitzaz, baiña... Geldi!... Zergaitik?

Udabarriak ateak zabal-zabalik artu gaitu baita beragandik maitatasunez besarkatuak izan gara eta era batean opaldu dozkun argi dirdizari ta berotasuna aintzagarria da.

Ez uste izan, besteen eritxiak onak izaten dirala, aurka egiten ez ausartu ta zaletu egiten garanik, baiña edozeineri garbi eta argi jakiñerazo bai.

Ames gozoz eiztariak bizkarreratu lei izkillua bas-auntz billa mendira juateko baiña bere zoritxarrez, aurkitu leike iñoiz iñork atzipetu ezin izan dituen axeri zaarrakaz eta onartzekoa da eiztari gizagaixo ori ez jakin betean egotea mendi aretan dagozan leza zulo danen nagusitazun gorengoen jabe diranak; axeri zaar orrek.

Barriro; Gelditu zaite...!

Artaldian arkume errukarri banaka bat susmatuta euroen billa atera ba'zara be, zurtasun guztiakin euroek babesteko gogo biziakin daukazuez artzain zintzo eta bulartsuak, orregaitik arren eskatzen dautzubet: Gelditu ba!

MAORTUA'TAR MARTIN

Euskal Erriko gizon ospetsuak

Iturriza ta Zabala'tar José Ramon

Ibiltaria ta kondaira zalea, idazle aundia ganera. 1741'gnean Beriz'en jayo zan eta 1812'gn urtean Munitibar'en il. Bolibar'ko eskola-maixu baten semea zan, eta ume-samurretatik trebetasun eta adimen bereziak agertu ebazan. Amabi urte ebazala, bere esku onagaitik Aulestia'ko idazkariaren esku-orde izan zan; 14 urtegaz Orduña'ko errenterikoa, ta 15'egaz ango mandatari-lanpetu arazodunena.

Zeregin onetan gitxi irabazten zala-ta, ta pozik be egon ez, Cadiz'era Mexiko'korantz itxasoratzeko asmoaz eldu zan. 1760'gnean Veracruz'era eldu ta Jalapa'n geratu zan, iru urtean. Gero Mexiko urira aldatu ta emen ogigintza bat irasi eban. Literatur mistikaganako zaletasunak eraginda, astialdietan ekin eta «Lucero Celestial» izena emon eutsan liburua argitaratu eban. Prantzizkotar lekaideak ontzat artu arren, diru gitxi egin eutsan egilleari. Ogigintzatik be irabazi gitxi arturik, bere osaba Gabriel Zabala'nera aldatu zan, naizta aukera onean egon ez, baiña osabearen oiñorde izango zan itxaropenez.

Andik laster Zabala osabea il zan, azkennaian llobarentzat gomutarik itxi baga, ta orduan, 1768'gnean, Bizkai-aberrira biurtu zan, amar urteko ainbeste ekiñaldi, neke ta lanez aurreratu ebazan berrogetemar milla errealen jaube bakarrik zala. Cadiz'en lurreratu zan eta jorraillaren 6'gnean Bolibar'era eldu, ta emen, urtebetez idazteko lanari emonaz, eliz-liburu bat amaitu eban beingoan. Gerotxoago, gogaituta, edo Jainkoak deituz, edo ez dakigu zergaitik, Burzeña'ko Mesedetarren lekaidetxean praille izatea gogoan sartu yakon, baiña ez eben artu gura izan.

Ortik, Madrid'eko San Felipe el Real'era bideratu zan, eliz-liburua argitaltzeko baimen billa ta an praille-motz izateko gogoz, baiña ez eban ezer lortu ta, gaiñera, ez eutsen bere liburutxoa atzera itzuli. Guztiz saminduta, ainbeste oztopo ta eragozpide aurkiturik, Bolibar'era biurtu zan.

Gero, Zaragoza'ko Pilar'ari ikustaldia egitera joan zan, eta uri ortatik, eskuan makillea, ta lepo-bizkarretan zorroa, Compostela'ko Santiago'ra eliz-txangoan edo erromes, oiñez abiatu zan. Oiñak zauriz eta minbera eldu zan, ta osatuta gero, La Coruña'tik zear, oiñez barriz be, bere errira etorri zan.

Madrid'en kendu, ostu eutsoen eliz-liburua langa beste bat egiteko lanari ekin eutson ostera. Lenagokoaren zirri-borro zarrak, okeridatziak eta baztartuen billa asi zan. Zati batzuk mostuz, beste batzuk ezarri ta gaiñetuz, otoitz geyago ezarriz, oraingo onetan «Manual del Cristiano» ipiñi eutsona osotu eban, eta baimenen billa Iruña'ra beragaz eroan. Ara eldu ta iru egun barru, baimen ori lortu eban, ta Benito de Coscojuela'ren irarkolan lau milla errealengaitik argitaratu.

Andik laster, Erroma'ra oiñez joatea erabagi eban, ta 1775'gngo orrillaren 17'gnean urten eta bagillaren 16'ganean eldu zan. Erroma'n, eleiz, toki ta etxe oroigarriak ikusi ondoren, Civitavechia'n itxasoratu zan ta Lion'go kolko zear. Barzelona'ra eldu. Andik, Monserrat santutegira igon, otoitz egin eta gelditu barik jarraitu, oiñez, erromes ibilketa baten, makilla, lepo-zorro ta gaiñekoz, Catalunya, Aragoi, Errioxa ta Araba'ko erriak aldez-alde zearkatu ta bere etxera aldu zan.

Atseden apur bar artu ondoren, ibilketa ta ikusketa barriak egitera, Balbanera'ko Andra Mari, Kogalla'ko Millan deuna, Kaltzada'ko Domeka deuna erriak zear joan zan. Eta Miranda, Fontecha, Berberana ta Orduña ikusi ta gero, Bolibar'era sartu, emen geratzeko azkenez.

Ainbeste ibillaldi egin, eta idaztegi, idazaltxor aztertuz eta eratuz, edesti-billaketa zaletasuna sortu yakon; bidea zabal eta lan ederra ba-eukazan orretarako, etxe aundietatik oneitako idaztegiak autolatzera deitzen eutsen-eta.

Bere esku ta luma ederragaz, 1049 liburu baiño geiago idatzi ebazan, edo ber-idatzi berak eratutako idaztegietakoen artean, gaiñera, «Grandezas y excelencias de la Casa Vizcaína» ta Bizkai'ko ikusmiratzaz liburutxuak be bai. Geroago, oneikaz baliatu zan, bere «Historia General de Bizkaia» egiteko; bere izki ederrez papereratu ebazan, 23 idaztitan. Bakotxak 225 orri bikoitz eukezan, J. Subirana'k, Barzelona'n, 1884'gnean, egillea il eta 72 urte geroago argitaratu eban.

Iturriza'k egindako edesti lan eder orretan, egi osoa ez diran gauza batzuk izatea be baliteke. Alanbe, liburu onetan ikasi edo irakurri barik, ezin edo nekez jakin daitekez Bizkai eskualdeko gertaerak.

LETONA

Filolojiazko jardunak VI

Batzarra'ren lanak

An bete zan arloaren berri ez zan garbi agertu bi urtez geroago baizik, liburu aundi batean lan guziak argitaratu ziranean.

Lan aien balioa ezik oraindik onuragarriagoa izan zan Katalan izkuntzaren inguruan sortu zuan giroa.

Fabra'k bidalitako «komunikazio» edo «mezua» txit onartua izan zala ba-dakigu. Atal batean H letraz diardu. Egilleak Bilbo'n bizi zalarik ikusten joan zan «*L'Avenc*»eko bere lagunek, atzeraka egin eta amore emanez, berriz *H* erabiltzen asiak zirala.

Onek zearo naigabetu zuan Pompeu eta bere samintasuna onela azaltzen du: «Mientras por todas partes la tendencia es de simplificar las ortografías heredadas, en Cataluña hay quien propone que se adopte la ortografía etimológica. Cuando franceses, ingleses, portugueses, etc., se quejan de las complicaciones absurdas de la ortografía etimológica, no vamos nosotros a confeccionar una. «*La H inicial catalana es perfectamente inútil, no representa ningún sonido actual, ni antiguo del catalán*». Gero jarraitzen du, erderaz noski, gai bera astintzen eta ez dut euskerara itzuli nai iñork uste ez dezan nere kabuz ari naizela. Fabra'ren itz zeatzak onela diote:

«La *H* de «*hora*» y palabras análofas no se han pronunciado nunca en ninguna lengua románica. Cuando se forjaron estas lenguas hacía mucho tiempo que la *H* latina se había vuelto muda». Catalunya'n gure artean bezela zenbaitek «Izkuntza idatziarenganako errespetoa aitatzen dute: oituraren indarra». Arrazoi aundiz erantzuten zien Fabra'k ez dagoala zertan artu erderatik datozen oitura txarrik. «Un respeto ilimitado hacia ciertas costumbres llevaría a no intentar reforma alguna y a aceptar la ortografía castellanizante». Guk esango genuke: «gaskoinkeria... Emendik kutsatu bait zaizkie ipar-euskaldunoi *H* izkia eta beste doiñu arrotzak».

Eta Fabra'ren iritzia gure egiñik: «En nombre de una costumbre no se puede condenar una reforma. Hay que mirar únicamente, si ésta es buena, útil o benéfica». Ikusten duzutenez Fabra bide ortatik dua, *Hatxe* baztertzeko asmoa darabilki beti gogoan.

Batzar gogoangarri artan Alcover'ekin buruz-buru jardun zuan. Mallorkitar jakintsua goi-maillara iritxi baldin ba'zan Fabra ez zan motz gelditu. Bat etorri ziran *A* preposizioa nola erabilli, baiñan *X* letra arazoan eta beste gai askotan bakoitza bere aldetik.

Norbaitek galdegin dezake: «Zer ondoren izan zuan Batzar nagusi ark...? Ezer gutxi asiera artan «praxis» kontuan. Txirbilla-suaren (encenales) antzekoa izan zala aitatu zuten, ez ordea alperrikakoa.

Jende ikasia kontuan erori zan Katalan izkuntzak korapillo batzu askatu bearrak zituala. Ala joan ziran bizpairu urte. Zaspigarrena eldu zanean, ots ain zuzen 1.913 urtean eratu zuten «*Institut d'Estudis Catalans*». Ez zan beranduegi. Gauzak berez umetzen diran bitartean itxoiten jakin bear da. «*Congreso Internacional de la Lengua Catalana*» bukatu ala Alcover langilleak ekin zion berriro bere IZTEGI aundia osatzeari.

Gizon bakarra ez zala aski Izkuntza baten gidari izateko ta Aguilo'ren lanaz bailaturik eta beste lagun taldea bereganatuaz Batzarra'ren asmo ta erabakiak erreztuko lirakela guziok aitortu zuten aburu batez.

Fabra'k bere esku «*El Poble Catala*» zeukala esanik gaude. Beronek Batzarraren berri zeatzak emanez joan zan. Eta ura amaitu zanean bi itzaldi eratu zituzten. Bata Ateneoan eta bestea «Centro Excursionista de Catalunya'n. Gaia onoko auxe izan zan: Definición de la lengua catalana» Eta mami-mamia Fabra'ren iritzian, Historiaren gora-berak dirala-ta izkelgi mota bat nagusitzen dala gerora Izkuntza oficiala biurturik.

Izkuntza ofizial onek oiñarri izkelgia du... Zimentu au gure Aita Justo Mari Mokoroa'ri gogoko zaiona dugu.

Fabra'k itzaldi aietan Catalan Izkuntza sakon-sakonetik ezagutu ta menperatzen zuala agertu zuan. Kultura aundiko gizona zala ere bai ta arritzekoa zan orrelako maisua Bilbo'n Kimika erakusten leiatzea Bartzelona'n bertan katalan izkuntza erakusten egon bearrean.

Ez al zan Katalunya'n Mezenas'erik?...

Betiko leloa zuan Fabra'k Ortografia erreztea, fonetismotatik urrunduaz. Eta «Centro Excursionista'ko itzaldian berriz ere Etimolojiari buruzko «*Hatxeak*» baztartzeko iritzia ez zuan azturik utzi.

«El Poble»k Fabra'ren goresmen biziak egiten zituan eta onen izena aiputan zebillen Catalunya guzian. Aldizkari ortan argitaratu zizkioten «*Questions gramaticales*» lanak, aren ortografia errespetatuaz, naiz ez beti onartu.

Bartzelona'n egonaldia egiteko eman zioten baimena bukatu zitzaion eta berriro Bilbo'ra itzuli bear izan zuan. Uste ez zuala emengo katalandarrak omenaldi-jai bat eskeñi zioten 1.906 urteko Azaroaren 18'n ospatu zana. Eta ontan amaitzera goaz gure gaurko atala. Beste batzuentzako gaia gelditzen bait zaigu oraindik.

ANTONIO M.ª LABAYEN

Ramiro Arrue, Ezezaguna

Azkenean, au ere joan zaigu bere larogei urte «gazteekin» ta guk —bere lagunak— ez degu ezer esan. Ezta ezertxo ere. Lotsarik ba al daukagu? Bai, esan bearra dago, zar ta gazteak konserbadore ta berri-zaleak sendimena galdu degu.

Ta ortatik datoz gure gaitz geienak. Gure biotzak ain daude legorrak! Zinema dala, kirola dala, jolasa dala ta gero, ezer ez!

Bai, Ramiro Arrue, gizon apal ta umilla, margolari fin ta gozoa, baita garbia ere; norbait izan da gure pinturan, Euskal pinturan batez ere.

Margolari au —berez bizkaitarra— langille purrukatua zan ta agerketa asko egin zitun emen, Europa zarrean (Paris-Londres) ta baita ere Amerika urrunean (Buenos Aires, Montevideo). Bere lauki eta gai guztiak —margo apalez— grisez josiak, denak ziren Euskaldunak. Liburuak ere apaindu zitun, bere marrezki bakun ta sakonekin. P. Loti'ren «Ramuntxo» ta F. Jammes'en «Euskal Ezkontza» esate baterako.

Beraz, ikusten degunez, Ramiro Arrue artista osoa zan, sendimen izugarrizkoa. Egizko artistaren «Itsu mutilla» sendimena da! Aspalditik Donibane Loitzunean bizi zan ta noski an, utzi ditu bere ezurrak.

Ta gu, emen ezer jakin gabe! gure «problema gorriekin»! Zer lotsa! Zer amorrazi bizia! Bai, bere ezurrak-lurrean, euskal lurrean galditu dira ta bere anima—«Zeruan» Jainkoaren Edertasun paregabea ikusten.

Margolarientzat, Jainkoa — (Misterio bearrezkoa benetan) Edertasuna da! Bai, gure Ramiro Arrue'k Reboluzio eder ta polita ta egiz Pakezkoa utzi digu. Goyan Bego!

Gaizki edo ondo —bakoitzak aal duna egiten du— ixiltasun aztuna puskatu det. Baiñan ala ere, euskaldun geienentzat, Arrue, Margolari ezezaguna izango da.

MATXIN

Gaurko mundua gero ta Txarragoa?

Urteetan aurrera dijoaztenak, esaten digute: Gaurko ludiko bizitzera, leengoa baiño txarragoa dala. Odeitzarrak goian zear ikusten dirala, ta basamortuan aizearen orrua. Ikusieziña ta etsaikeria aunitz ikusi ta nabari dalarik, bekaitzez betetako gizartea sortzen ari dala.

Bestalde, gazteak esaten dute: leengo ludi-aldia gaizki antolatu zutela, itxuragabeko ta zuzentasunik gabeko gizarte usteldua artu bear izan zutela.

Zaarrak gazteen iritziari onela jardetsi ta erantzuten diote: zaartzean asko balioko duanak, gaztetik ezagun ta ageri bear duala. Baiña, ez dala ori ikusten, beste au baizik, Jainkoaren siñismenean eta erlijioaren burutakizunean, atzerakada aundia egiten ari dirala.

Ez da erreza erabakitzen, mundua leengoa baiño obeagoa dan. Egia da oartu gerala, ta alde batzuk banaituaz, bereizten ditugula. Bestalde, argi ta garbi nabari da, zenbait bururakizunetan, aurrerakada izugarria nabaitzen dala.

O. N. U.'k argi ta garbi erakusten digu; gizonaren eskubideak, zer eratakoak izan bear duten. Erakutsi auek guziak, Kristo'ren ikasbidetik jasoak dira.

Maiz entzun oi izan dugu, gazteak, Jainkoaren itzarekin aztuta dabiltzala, aldenduak bizi dirala. Ditekena da, ta agian ba'liteke egia izatea; baiña, ori egia dala aitortzera ez nintzake ausartuko. Zalantzarik gabe esan bearra dugu, leen siñismena ta betiko bizitza maiz aitatuaz, beste zuzengabekeri aunitz, zapi bategaz estaltzen zituztela.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

AGUR

III URTEA
8 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - ORILLA - 13

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ABEDETZEA

Abedetzea (edo alfabetatzea) jakintzearen lenengo maillea da, baita jakintzara eltzeko bearrezko bidea be. Idazten eta irakurten ez dakian gizonak jakintzara eltzeko goitu eziñeko oztopoak aurkituko ditu. Urte batzuk dirala askoran, geure gurasoak bear ba'da, abedetu bako gizonak. Eta nasai bizi ziran. Diru-etxeetara joan eta an dirurik ba'ruken izenik ezarri barik artzen eben, naikoa zan atzamarretarik baten irudia an ezartea. Baiña gaur nork ez dau ikusi abedetzearen eta jakintzearen garrantzia?

Abedetua izateko gauza oneixek jakin bear dira: Irakurten eta idazten. Eta irakurten jakitea liburuetan datorrena erreztasunez norberetutea da, errezaditzea. Idazten jakitea, barriz, entzuten dan berbaldi baten laburpena utsundi barik ingian ezartea.

Lenago abedetuak izenpetzen ekieuak ziran. Baiña gaur abedetua izateko izkuntza aldetik guzti ori eskatzen da.

* * *

Gure artean geienak, ia guztiak, abedetuak ei gara. Ori diñoe egiten diranzenbaketak. Baiña oraindiño zenbaketa bearrezko bat daukagu egin barik: zenbat euskaldun ete dira euren izkuntzearri begira abedetuak? Zenbaketa au egiteak lotsatu egingo gindukez.

Gure egunetan abedetze-ekiñaldiak nunai, edonon, egiten dira eta ugarituez doaz. Au bai alde pozgarria benetan euskerearen etorkizunari begira!

Ikastetxeak, len erdera utsez ebiltzenak, gaur asi dira lenengo oinkadak emoten, lanean dabiltzanentzako be ekinaldi bereziak izaten dira. Gure gaztedirik geiena, ezetan arduratzekotan, onetan alegintzen da. Deustu'ko ikastetxean bertan, ez abedetzeko, baiña bai euskera irakasteko egiten da lantxua...

* * *

Zelan egin bear da abedetzea?

Irakurtea euskeraz erreza da ta naikoa arin ikasten da. Gero ekin egin bearjako. Entzuna idaztea be ez da gatxa. Euskaierean ba ditu izki gatx batzuk: s/z ta ts/tz batez be. Idazpenak egitea gatxagoa da, batez be erderaz oldoztu eta euskeraz idatzi nai dauanarentzat, euskera biak oso ezbardiñak dira-ta. Baita etxeko izkuntzeak itz-zati asko galtzen ditulako.

* * *

Zelako euskeraz?

Abedetzea, asierea dan ezkero, al danik euskera errezenez egin bear leiteke. Guretzat bizkaiera idatzia erabiltea naikoa litzake. Urrengo maillea beste euskalkiak ikastea izan leiteke eta azkenez euskalkien batasuna nondik nora egin leiteken aztertu. Onetan lan egiten ba'da euskera batua etorriko, obeto esan, ekarriko dogu. Euskera batua bide dala abedetzea asteak teillatutik etxea astea dirudi.

* * *

Abedetzea ez da osoa izango beste gai batzuk erantsiten ez ba'dautsaguz Euskaldunen kondairea, ludi-ikastea, gramatikea, ondasun-arazoa, t. a.

Abede-gabeak garan guztiok asi gaitezan ainbat lasterren lan oneri ekiten. Abedetuok garanok zabaldu daigun gure jakintzea. Erriari zor au dautsagu.

AGUR



Ernani'ko aurrak eurak, ikastolearen alde.

Gazte alkarte egokiak

Gaztaroa, ezitzeko garai bikaiña da. Bitarteko adiña nola dan, gazteak ez dira aurrak, ezta gizonak ere; oraindik egin gabeak daude. Orduan garrantzi aundia eman bear zaio adin oneri.

Adin ontako gazteak zertara jotzen dute geienak? Ikusten degunez bide errexetik dijoaz, itxurak dionez. Geienak, dantza, edantoki, ta lasaitasunean betetzen dituzte beren asmoak. Gizon bezela ezitzeko gogo gutxi ikusten da. Itzak, bai jario; jokabideak aulak.

Gizon egiteko ta gizartean sartzeko, gazteak gazte-alkarteen bear aundia daukate. Gaztea, alkarteko lanak jazten du ta laguntzen dio errezago gizarte maillara iristen. Gazte alkarteak aipatzean, ez ditut nolanaiko alkarteak izendatzen. Eziketa ona egiteko, alkarte oiek pedagoji jator batean oiñarrituak izan bear dute. Eziera gaietan, arrazoiak ondo sakondu bear dira. Gaztea ez dago padagoji onaren bearrean bakarrik, ba du ezitzailleen bearra ere. Ezitzaille onak gutxitan arkitzen dira ta sasi ezitzailleak ugari daude. Ezitzaille onak arrazoien bidez jokatuko du, bere gogoa ez du azken itza bezela artuko; gazteekin batean dagola aleginduko da, askatasunean eta ekintza jatorren bidez aien nortasuna egokitzen.

Pedagojia ta ezitzailleak ez dira dana, oraindik gazteen artean giro jator bat bear da. Egurrakin bakarrik ezin degu otordu bat egin. Gazte ajolagabe edo kirtenekin, geienean, pedagoji ta ezitzailleak alperrik daude. Bere gorputzaren lasaitasunari begiratzen dion gazteak, nunbaitik lertu bear. Laguntzarik onenak ez du ezertarako balio. Eziketak bere frutua emateko denbora bear du. Eziketa onak giro osoa aldatzen du, ta ortarako garaia lekuko. Eziketa lan sakona ezin da ixtanpa batean egin. Urteak bear dira. Erri baten etorkizuna ezitzailleen eskutan dago. Nolako ezitzailleak, alako erria. Erriaren aurrerapenari begiratuaz, eziketak azken itza du.

Ara, etorri zait, nere asmo bat azaltzeko garaia. Zer dago gure artean gaur?, galdetzen ditenari auxe esango nioke: gure artean naspil aundia. Ba daude euskal gazteen alkarteak. Baiñan nik garbi gauza gutxi ikusten det. Sasi tartean bezela dabiltz. Gazteak agresibitate utsean ezitzen dituzte. Ezitzaille ikasi gabeak zernai aurreratzen dute, bai sozial, errelijio, politika edo sexu aldetik. Gazteak borrokarako bakarrik nai dituzte. Iraultzaren dogma sartua daukate buruan. Ara bi itz laburretan gure gaurko gazte alkarte geienen jokabideak azaldu. Ludia ta gizartea aldatu nai dituzte ta ez dakite nun daukaten burua. Asmoak marxistak bai, oso aurreratuak berak diotenez, urdailla berriz kapitalisten antzekoa asetzen zailla ta urdail azpiko gosea kentzen oraindik zaillagoa.

Gure gazteak erretzen ditugula ez degu ezertxo ere aurreratzen. Gazteak urkatzera daramazkigula, gure erria betiko itotzen degu. Baiñan, kontuz, guk itotzen degu ez bestek. Gure erria esnatzeko, alderdi guztietatik osasun oneko gazteak bear ditugu. Osasuna da lendabiziko gauza, gero eziketa jatorra.

Gure gaztedia usteltzen degula nora goaz? Gure gazteak gaxo ditugula zer egin dezakegu? Orrengaitik ezin det ontzaz artu, ezitzaille gazte batek esaten zidana: «nere gazte taldea berobero daukat, bear bada beren burua urkatzeko prest daude». Ori ez da ezitzaillea izatea, iltzaillea baizik. Garbi esan bearra dago, gaur eziketa aldetik, ikaragarrizko diktadura dagola; eskubikoa txarra ba'da, ezkerrekoa ez da obea. Gazteen nortasuna etzaie ajolik. Egiazko askatasuna ez dakite zer dan. Dialektita bere sasi argi guztiakin aurretik dijoa eta orren pean gazteak. Eziketa jator baten giroa gaur gure gazte alkarteetan billatzen zailla da. Au nere asmoa ta nerea bakarrik da. Gaurko naspilla sortu dutenen artean, arkitzen ditugu apaizak ere, alde batekoak eta bestekoak.

Au dana gurasoak jakin bear lukete, ikusteko ze eskuetan uzten dituzten beren aurrak. Beti azken itza gurasoena da-ta, ez bestena.

Gaur gure elizak, laguntza jator bat eskeñi bear lieke gurasoei. Ortarako lanik onena gazteen eziketa sakondu, zuzpertu, zuzendu ta indartzea izango litzake. Ori dana aurrera eramatearren, nai ta nai ez, gazte alkarte ta ekintza jatorrak sortu bearrak daude. Ez da lan errexa. Egitazko lana zer dan ba dakigu. Bide ortik jarraitzeko bearrezkoena, auxe da: elizaren agintariak gaurko giroa ondo ezagutzea ta elburu onekin kezkatuta bizitzea.

Ikastolak ba dijoazkigu aurrera, uste baiño aurrerago, Jaunari esker. Kulturaren lanetan ere aurrera goaz. Ez degu dana galdua. Millaka aurrak euskal giroan eziak izango dira. Ta ikastoletatik aterako diranean zer? Erdal giroan bizi bear al dute? Bearrezkoak ditugu euskal gazteen eziketa alkarteak. Elizak ze erantzun eman dezaioke, Euskalerriko bear aundi oneri?

Berandu laiñopetik aterata esnatzen ez ba'da, trena galduko du... ta kito.

LATXAGA

OARRA

Gure zuzendaria dan Retana jaunaren bidez, Euskaltzaindi'ko idazkaria dan San Martin jaunak, argitasun batzuk eskatu ditu gure aldiakarian agertu zan idaztan bateri buruz.

Orren iritziz, Aita Villasante' rentzat iraingarriak ei-ziran Arenaza jaunak, gure 33'gngo zenbakian idatzitakoak. Arenaza'k ez eban bere idazlanean iñor aitatu; ta argiago nai ba'da, «or zear dabiltzan praille batzuk» iñoanean, ez ei-eban Aita Villasante'rik gogoan izan, bere ordenako beste praille bat baiño.

Beste praille onek, Bermeo'n, entzule askoren aurrean ta beste gauza batzuen artean, auxe esan ei-eban: «euskera batudunak Azkue ta Arana-Goiri'ren jarraitzaillerik zintzoenak dira». Ori egia ez dala begien aurrean dago. Ta ori aipatzen eban Arenaza'k.

Emendik aurrera, iñork erantzun nai ba'leu, idatzi bedi, ta gizalegezkoa ba'da, argitaratuko dogu. Bitartean, gure iritziak azalduko doguz, naizta guztien atsegiñerako izan ez.

IDAZLE BATZORDEAK

EKAITZEAN ATERPE BILLA

Antxiñako esaera zarrak ondo datorkiguz noizik-bein. Txiki-txikitatik, gure amoma zanaren ezpanetatik entzuna dogu otoi antzeko au:

Santa Barbara, Santa Kruz,
Jaunak gorde gagiguz,
Iñuxenten ogixe,
Jaune miserikordixe.

Ekaitza etorranean, lenengo oiñaz-argiak dizdiratsu ikustean, aitaren egin ondoren, len esandako otoi ori zenbat bider egin ete dogu gure Nabarniz'ko ume-aroko egotaldietan.

Gaur bere ez dogu otoi orren esan naia ondo ulertzen, baiña berrogei urte oneitan ezagutu doguzan ekaitzak asko izan dira; beraz, ez da arritzeko lenengo oiñaztuak ikusi baiño len ekaitza susmatzea... baiña ez «iñuxenteen ogia» jaten jarraitzea.

Orregaitik, gaur gure erriarengana urreratu dan ekaitzari, azpaldian ikusi geuntzazan lenengo oiñatargi dizdirak. AGUR, gure aldizkaria argitaratu baiño len, ainbat oiu ta deadar emon genduzan, baiña alperrik!

Gure errikide zintzo askok ez eben aterkiñaren bear izanik ikusten. Orain bai, orain konturatzen asi gara, baiña berandu egin ez ete dan, nago. Dana dala, betor zorionean argitasun pixkat gure buruetara.

Orri bat irakurri dot oraintzu, ez dakit baiña zeiñek egiña dan; egilleak, egi-billatzaille bezela idazten dau, euskaldunak ernai ibilli bear dogula adierazoz. Gure alkarte ta gizarte mailla guztietan satorra sartu dala diño... alkarte oien iritziak erdal kutsuz aldatuz, egizko euskalduntasunari uko egiñaz...

Egi galantak esaten ditu; etsaia sartu jaku etxe barruan, gure arteko griña txar guztien sua piztuten dakian, etsai erdal-zalea. Nor da? Nun dago? Batzuk agirian geratu dira; geienak, zeure alboan irriparrez, ta ez da erreza jakiten edo igarten, irakurle, baiña ernai bizi zaite, kontuz.

Gure ustez, ba-ditue euren ikurtxoak, eta ekaitzaren trumoi-otsa entzun baiño len, aukeratu dagigun aterpea. Zelako ikurtxoak?

Letra bat gora-bera, gure erriko arazoak txikiak dirala entzuten ba'dozu, zabaldu aterkiaña! Mundu guztiko «langilleria» askatu ondoren gure erria jasoko dala ba'diñoe, bardin! Gure oitura «atzeratuen» ordez, txakur-maiiakeria, Jaungoiko bako ezikerea ta abar eskatzen danean, kontuz!

Biotzez gaztelarrak izan arren, gure izkuntzea, euren burua erakusteko bakarrik erabilten debenekin, kontuz! Esango neuke emen geiago, agiri-agirian dan beste ikur bat be salatuko neuke, baiña gure arteko batzuk minduko litzakez. Asko dira oraindik lozorroan bizi dirala, aterkiñaren bearrik asmatzen ez dabenak, «iñuxenteen ogia» jaten dagozenak... itxartu bediz!

Urteak dirala, ezinbesteko oporrak izandakoak gara, gurekin batera «opor-lekuan» beste gizon batzuk ezagutu genduzan. Gure «romantizismoa» gaitik naiko barre egiten eben, gure lepotik; eurak «progresistak» ziran, kontixu, ta gu kanpaitorre peko errizale atzeratuak.

Orain, areitako batzuk or zear dabiltza, buruan euskaldun txapela jantzirik, gure ibaietan arraintzan... eta zenbat bixiguk iruntsiten daben amua! Ea itxarten garan, euskaldunok, bestela ekaitza bor-bor asten danean, ipurdi ondoko ostikada bategaz txalupatik botako gaitue... edo ditue ta gero gurea... *lengoan, edo obeto esateko, oingoan!*

Belarriak luzatu, ta adimena... erabilli!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

SASKI NASKI

Egun ederra! Guztiz ederra! Auxe da barren-barrendik irteten zaidan oiua! Orrela izan zan, neretzat beintzat, eta nik uste an izan giñan geienentzat, Epailla'n ogeitabostean.

Elgeta'n bildu giñan, AGUR'en idazle ta adiskide talde bat, eta esan bezela egun biribilla igaro gendun. Ba-genun orrelako zerbaiten bearra! Askotan, bakarka gure lanean ari geranean, neri beiñepein, eta besteai ere beste ainbeste gertatuko zaie noski, inguruko giroa ikusita, nere eta gure lan guztiak alperrikoak jotzen ditut. Zertarako? galdetzen diot nere buruari, aurkako indarrak —alde batekoak eta bestekoak— ain gogor ikusten ditudanean; Zertarako gure jarduna? Zerbait lortuko ote degu? Baiña lengo egunean, 130 bat lagun alkartu ondoren, biotza berotu, ta berriz ere lanari ekiteko indar berrituta etorri nintzan. Ango giroa! Ango alkartasuna! Oraindik ere bizi gerala, eta Jainkoa lagun, ekingo diogula, gure aurrekoak erakutsitako bidetik.

An izan genitun gizon ospetsuak ikusi ta entzunda nola ez piztu ta poztu? Aita Mokoroa Estonba ta abar... eztet izen geiago eman nai, iñor aztuta usteko bildurrez. «Gizonak» esan det, baiña ez det ondo esan, emakumeak ere ba genitun eta; beren izenean, Ira'k itz egin zigun. Berak dakin bezela, labur eta sakon. Zorionak, ain gauza ederrak esan zizkiguten guziai, zorionak eta eskerrak!

Beste gauza batek ere poztu nindun; ango gazte taldea ikusteak. Orixe bear degu, bestela gureak egin du! Orain gelditzen zaizkigun adiñekoak joan, eta ondoren gaztedirik ez ba'degu... kitto. Baiña, esan bezela gazte talde polita ikusi nun, eta oiek bezelako geiago ere izango ditugun itxaropenez gelditu nintzan.

Jarrai gazteak, an entzun genitun irakaspenai, oso gauza ederrak entzun genitun-eta. Aurrera bide ortatik! Gure erriak zuen bearra du-ta.

* * *

Aurrekoa idatzi ta orra nere aurrean, orain arteko poza pixka bat oztu dun izparra. «Unidad» «periodico»an erdal idazle baten azalpen batzuek.

Bein eta berriz esanda ere, jaun auen esanak arri-arrituta uzten naute! Nere buruari galdera au egiten diot; «Berak ote dira adimen laburrekoak, ala beste guztiak gerala uste ote dute?» Bata ala bestea! Eta, zoritxarrez ez det uste berak diranik, nik uste ba-dakitela ondo zer ari diran, eta orduan besteak «iñozoak» gerala uste dute nunbait.

Lengoan «Akaitz»ek idatzitakoari zerbait erantzun nion, eta orain, berriz ere gai berari lotuz, besteak esandakoaz jardun bearrean arkitzen naiz. «Akaitz»ek bere idaz-lanean, «jantziak urratuz» auxe zion:

«Etxeko ixtilu ta xexioak etxean bertan konpontzen alegindu beharrean, kanpokoen eskuak ere liskarkide izan daitezen saiatzen garela. Bai dela hau tristurazko eta tamalgarri!»

Eta ara nun, gaur apaitzen degun *bere adiskideak* «Unidad» orretan bertan, «kanpokoak liskarkide izan daitezen» bere agerpenak argitaratu!

Irakurleak ba-dakite noski, zer gaitaz ari naizen. «Euskaltzaindiak» eratutako sariketa baten gertatutakoatzaz, eta onela dio garuko onek:

«Se dio el caso de que los artículos de la base no aclaraban totalmente una cláusula: si la obra podía ser editada o inédita».

Au esan eta lasai-lasai geldituko zan noski! Baiña ez al zan argi esan idazleen izenak *ixilpean* bialdu bear zirala? Zertarako zan eskutuan bialtze au, len argitaratutako idazti bateri saria eman ba'zezaioteken? Ez al zekiten saria eman baiño len nor zan idazlea? Non da orduan idazleen «eskutu» ori? Eta *baezpare*, «euskerantoan» idatzitako idazti bateri gaiñera. Zergaitik ote? «Akaitz» eri esandako bera diot orain ere. Ez «zozokeri» bidez *gaizki egiña* on bezela agertu nai izan, arren. Ondo dago!

Oraindik ere beste gauza geiago, orrek esandakoari jarraituz, ba-ditut, baiña gaurkoz naikoa da, ta Jainkoa lagun urrengoan jarraituko det. Bukatu baiño len, ala ere, beste gauzatxo bat esan nai nuke. Orain artekoak naikoa ez dirala, bere esanetan, Labayen jauna gezurti agertzen du. Labayen jaunak «Euskaltzaindira» bi aldiz idatzi ta erantzunik artu ez zula zion Eta beste orrek begira zer dion:

«En este punto también quiero hacer constar que la Academia no ha recibido ninguna carta de protesta sobre este asunto».

Geiago ere jarraitzen du, baiña naikoa dala uste det. Eta au guzia Labayen jauna ere «academicoa» dalarik edo zalarik beiñepein. Zer derizkiozute?

AMALE'K

POZAK ETA KEZKAK

SATORRAK.—*Eibar'en, sei urte inguruko umeentzat Udaletxearen bitartez, euskal ikasketak asi dira. Arduradun eibartar neskatilla gazte bat izan da aukeratua. Au baiña ez da ziña egindakoa, asmorik onenagaz orretara lotu dana baiño. Ara baiña, satorrak urten dabe zulotik eta asi dira neska zintzo ori kezkatzen: «Zu, or, «provisonala» zara ta obe dozu lagata etxera joan». Zearo kezkatu bere etxera joan zan. Aita baiña, ez da errez azpiratzekoa, olakoak baiño makillada gogorragoak artutakoa, ta zuzen joan zan joan bear zan lekura. Or, garbi esan dautse: «Zure alabia ortarako ososoan izendatuta dago, ta ez dau kezkarik izan bear». Beste zin egindako baten alabea nai eben or sartzea, betiko satorrak. Eibartarrak, ez dakizue asko satorkerietan, beti siñistu izan dozue gizonak onak dirala berez, ta ez dozue ikusi al izan, lau satorrek egin dautzuen azpi zulatzea. Ta parkatu «Satorra» lagun zarra, au ez dok iregaitik, ezta urrik be.*

* * *

JARRIKA.—*Onek h'kin bear leukek izan, baiña ez gurean. Orain dirala ille bi inguru, «pakean dagonari pakean izteko» eskatzen eutsen Arenaza jaunari, arrika gabiltzanon liskarretatik at. Arenaza'k gure arrien bildurrik ez izateko erantzun eutson... baiña ikusten danez ez egoan ain oker gure idazlea: lenengo «jarriak» jaurti dautsez, Trikuarrieta izen pean eskutitz iriki bat irakurri al izan dogu, euren «euskera batuan» idazteko eskabidea. Ori agiriko lanaren zati bat baiño ez da, bestea azpikoa... ikusten ez dana, gabeko arrikadea bezela. Baiña zein euskera «batu» eskatzen ete-dabe, Anaitasuna'koena, Altuna'rena ala Zeruko-Argia' renak? Ez dakit besterik dan, baiña iru oneik bai, Gipuzkoa'ko ikastol bateko gurasoeri egin dautsen «inkesta» batetik. Nora ete goaz, mutillak? Batasunera ala lengo «euskalkiak» beste dozenerditxo bategaz ugaritzera? Sekula olako burugabekeririk!*

* * *

JARRIGARRIA BABESTU.—*Urrengorako laprastadarik izan ez dadin. «Domingo Agirre» sariketarako arauak argiago jarri dira. Galizia'ko Academeiak be orrelaxe egin dabela, ta emen bere idazkera aldetik Arantzatzu'ko «begi onez»ko arauak jarri ditue «bakarrik». Naikoa ei-da bokal biren tartean h'a sartzea... Orrela danok pozik! Ikurtxoa barrura sartzen da, ta kito. Eta ez esan orain Euskaltzaindiaren aurka gagozanik; ori aukeratu daben euskaltzaiñen aurka baiño. Ala h'bako euskaltzaiñak —gure ustez geienak— ez ete-dabe itzal oberik merezi? Ta, gulako idazle gizajoak umezurt jarrai bear ete-dogu, ala barria eratu?*

* * *

BATU ALA ZATITU.—*Sakabanatzerik ez geunke nai, baiña sarritan, Aizarna jaunak errazoi ete-dauan, uste dogu. Academia, iru edo lau «euskera batu» alkartu ezin orreik zaintzeko ba'da, zergaitik betiko euskera errikoia gordetzeko beste erakunde bat ez sortu?*

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

«AGUR»'TARROK ELGETA'N

Edo «Elgeta'n euskal zugaitza goikor» ere ar nezakean idazpurutzat.

Aratx. Munduan ipuiñ asko dago. Mundua bera ere ipuiñ bat da. Baiñan gurean asmatu duten ipuiñ aundiena, gezurtiena, euskeraren arazoa adiñ arazoa dala, bioloji arazoa dala esatea.

Leen ere ziur baldin ba'nengoan gezur onetaz, garbirokiago ikusi nuan Epailla'ren 25'gnean Elgeta'ratu nintzanean. Bai bai-nengoan euskera, edo Euskal-Erria zugaitz bat zala, zatitu ezin ditekeana, zaar, gazte ta bitartekoen artean banandu ezin ditekeana.

Zugaitz batek bere adar guztien bearra du, bere kimu-berri guztien bearra, eznetan daudenena eta zaarrena ere. Abarrak ostoak dituzte, ta ostoak euria dakarte enborra igartu ez dedin. Bataz beste baliatu bear dira, enbor igartuak ere ez bai-ditu ez adarrik ez ostorik emango sorkerazko bere semeaz batzen ez ba'da.

Auxe ikusi nuan ara ordukoxe. Euskeraren iru abarraldi, iru euskal idazle aro, iru belaunaldi, millaka urtez lenagotik euskera-zugaitzak itsatsita zekarren abarrez gaiñera, zaar, gazte ta tarteko idazleak euskerarentzat eusle ta bizi-emaille.

Argazkia ateratzeko garaierako berandu xamar iritxi giñalarik, orduantxe argazkiarena egiñik nere adiskide «Andoni» Zinkunegi argazkilari iaioak, multzoka zijoan idazle pilloa ostaturuntz. Geren tokietan exeri giñan. Bazkal ostean ez ote zan izango-ta itzaldietarako astirik, Arenaza jaunak lau itzetan agertu zigun jaiaren zergatia. Eleberri Sariak banatzeko, alkar ezagutzeko, berotzeko eta berriketatxo bat egiteko. Bazkaria sabel-jaia baiñon geiago, gogojaia, izan zan arima asetzea. Ba-zan an esan bearrik!

Bazkari gustagarria. Eta bazkal ostean, «Garitaonandia'tar Gotzon Sariak» banatzea: Lenen saria Estonba



apaiz jaunarentzat, eta bigarrenez idazten ari zaizuen onentzat, txalo bero-beroen artean.

Bereala, Basarri altxa zan. Iru bertso, eta aiek bertsoak! Ara emen bi:

Negargarrizko ikusten degun
jokera gaizto narratza
nola liteke egun argia
biurtutzea arratsa,
len lore oi zan tokian orain
sasia eta arantza
alkar gaitezen, garbitu zagun
berriro euskal baratza.


Ikusitzen da euskeran alde
daudela gure botoak
beste batzuek or ba-dabilzki
egundoko gorrotoak,
bañan gu orain esnatu gera
ez bai-gera ain tontoak
ai! euskerean tokirik ez du
iñolaz euskerantoak.

Arenaza'k bai esan itzaldietarako betarik ez zala izango, baiñan an egon, Bordari gizon jakintsuei otska, zirikalari. Eta ara nolaz-nola mintzo ederrik egin ziguten Manterola'tar Gabirel'ek, Aita J. Mokoroa'k, Anai Iñaki Olabeaga'k, Bilbo'ko San Anton eleizeko Bikario dan K. Gallastegi'k (bera baiñon aundiagoko itzen dardaraz ostatu ormak zart araziaz), Aita Yurre, Labayen, Zeleta, Aurre-Apraiz, guztiok euskera, antzin-euskaldunen izakera eta kimu-berri bezela zetorren idazle gazte talde ura goratuaz, auei bide onetik joanik zein onurak datorzkiguken adieraziaz.

Emakumen izenean Ira'k itzegin zuan ere. Eta gaur euskerak duan idazlerik gazteena dan Ezkauriatza'k, gaztediaren izenean, gaztediari deika mintzo.

Basarri'k, orain, itz neurtuaz, esandako guztiaren bilduma eman zigun.

Gero, zugaitz bakoitzak bere urretxindorrak ba-ditualako, gaztez beteta-




ko maietik Estitxu altxa zan, gitarra ar eta abesti bi eskeiñi. Ondoren, Josu Zabalondo eta Joseba Zarraga, bermio ta mungitar abeslari gazteek eta trebeak. Eta bitartetan Andoni Urrezti eta Ander Madariaga, mungitar txistulari gazte bion saioak. Aiek txako beroak guztientat, naiz izlari, abeslari eta txistulárientzat!

Eta azken esanerako lagatzen det ederrena aitatzea. Nork esango du orain edertasun ura ikusita euskera illik dagoala? Bazkarian eundaogeitamaika idazle. Akeita garaiean eldu ziranekin eundaberrogei. Antxen zeuden, aitatutakoaz gaiñera, danak ezin esan, eta ezagutzen ere ez, barkatu! Lenagoko idazle diran Gotzon Urrutia, N. Etxaniz, Beiztegi, Latxaga, Kamiñazpi, Ozkin, Zaloña, J. Murua, P. Solozabal, J. Sagartzazu, Garate, Goiria, Udalaitz, Muniategi, I. Garmendia, Oñatibia'tarrak, Jausoro'tarrak, Abeletxe ta abar. Oraingoak, X. Peña, I. Begiriztain, Olazabal X., t. a. luze bat. Eta oraindik gazte-gazte diran R. Zaprain, Otalora, Goirigolzarri, Rike, Egurrola eta abar. Emakumeetan, M. D. Agirre, Amale, Arzeluz, Elgoibar'ko «Mirentxu», Belaustegigoitia, K. Lasa, eta andereiño gazte mordo bat. Nork ezagutu aiek danak!

Aspaldiko urteetan ez det orrelako poztasunik sarri izan. Alai, etxeruntz itzulian jarri giñanean, eta gaikaldean azken eguzki printzetan Elgeta nabari, nere irudimenean euskeraren zugaitz irudia eman nion. Zugaitz beso zaarrek bere ostoak eta igaliak zaarrez lurreratu eroriko ba'ziran ere lur emankorrak eroriko zirala, eta osto oietaz batera «AGUR»eko idazle mordo trinko ura, ongarri izango zitzaiola euskera-zugaitzari. Guk aurrekoei mesedez euskaldun izatea zor diogun bezela, gerokoak ere gure zorretan geldituko dirala. Lur onean jaurtitako gure emaitzaz euskal zugaitza gora bideetan joango dala, urteroko kimu-berriz, adartxo berriz berriturik, indarturik eta goiturik.

Basarri'k esan zuan bezela, «zaintan odola daramagun artean gure bide-



tik jarraitzeko» asmotan etxeratu ginen tzan.

Eta asmo jator oni jarraitzeko ezin genuan zin egin bearrik, ez eta iñoren gandik marmarka jardun bearrik. Lengo bideari, gure bideari jarraitzea asi (Goiz-argi'tik).

UXOLA

GAZTE

ARPEGI BI

Kaletatik zear gaur gabean barriro ikusi zaitut. Itxas-erdian galduta bezela; argi batik, itxaropen barik...

Jentearen aurrean zure arpegi polita erakutsi arren, ondo dakizu beste arpegi bat dozula. Eta arpegi ori, oso ondo ezagutzen dot nik. Orregaitik nigaz ez dautsu balio egunero egiten dozun azpikeri edo «farsa».

Zure bigarren arpegia ezagutu ezkero, guztiz ezagutua zagozala deritxat. Bai, oso ondo eskutauta eukiten dozu, baiña arpegi ortan bakarrik aurkitu lezake ZURE mundua; zure benetako izakera; zure benetako pentsakera.

Antz-emaille edo «kalkuladore» utsa zara. Zuretzat, ondore onak bakarrik balio dabez; ori bakarrik! Zure lagunen artean, goi-goietako mailletan zabiltz. Eurak aunditzat arzen zaitue. Guztiak andikatzen, eta askotan credu lez artua zara.

Neskakaz ez dozu kezkarik; zugaz zorabuta dabiltza-ta. Gizartearen aurrean, alaitsu agertzen zara (zure barrua mingorra dan arren). Gazteen arteko idealistak txalotuten dozuz; barrundik: «Bestelako zoroak!» esan arren.

Kristaua zara (zer esango leukie zure «dans» guztiak!) eta Meza'ra be joaten zara (gauza guztien gaiñetik, lenengoz ondo geldituzea!) Ikasten dozu (al dozun gitxiena noski) eta begi guztien aurrean ondo ikusia zatearren, eskale bateri bost ogerleko emonte dautsazuz (gero, ba'leike whisky baten beste orrenbeste botatzea).

Gauza guztientzako dozuz erantzunak; korapillo guztientzako erabaki edo «soluzioak» zugan aurkitu lezakez. Orregaitik, aundi zara.

Dan-dana egiña nai dozu, zugandik pauso bat itxaroten dauan gizona galdua dago. Talde batean sartzen ba'zara be, talde on baten sartuko zara; baiña ez txar baten.

Bai, adizkide, antzerkilari bezela pare gabea zara. Eta orregaitik jenteak txalotuten zaitu; orregaitik zure azpikeriak asko balio dautsu gaurko munduan.

Baiña zure erraietako meatzaren barruan billaketan jardun ezkero, ez da iñundik aurkitzen zure emeretzi urteko urrea. Zure lagunen artean aundia izango zara... baiña ZURE BENETAKO ARPEGIA OSO TXIKIA DA.

Ezergaitik ez zara lilluratzen; dana bardin jatsu; Mundua zaartu dozu, zure bizitza zauritu, zure odol beroa baztertu egin dozu...

Zure legea au da: ARKUMA TXIKIENA; zugaz ez dago odol-emaite edo «transfuziño» egitekorik, zure zaiñetatik ortxata doa-ta. Zure bizitzaren ontzia zuzentzeko asmorik ez dozu; eta zure utsunea beteteko ez zara aal.

Antzerkiko oial edo «teloia» barriro altxatzera doa... kaletik, zuri eskeiñitako txaloak entzutean, benetan urrikarri zaitut. Zergaitik zure burua olan atzipetu?... zergaitik zure gaztetasunari uko egin?... zergaitik?, zergaitik?

Etxeruntz nijoala, zure antzerkiko txartelak arturik, garrantzi aundiko itz bi idatzi dautsudaz: EKIN TA AURRERA!

Biotz-biotzez.

EZKAURIATZA'TAR XABIER

I. ASKATASUN ESKUBIDEA

1.—ZER DA?

Politika baten zuzena, arteza izateko, edo politikak, bera arteza izateko, askatasuna zaindu bearko dau. Ez dago askatasun gabeko politika onik. Origaitik edozein agintaritzak lenengo egin bear dauana, askatasun bideak jartzea da.

Gaurko gizarteak, edozein igarotako gizarteak baiño geiago, gizarte ondasun bat nai dau, ta orretarako estadu guztiak, askatasun bide bat edegi bear dabe.

Gizonak jatorrizko eskubide batzuk ditu, ta eskubide guzti oien artean, lenengo lenengoa, gizonaren aunditasuna da; gizon izatearen aunditasuna ezin da ezelan be zapaldu, ezin dogu, ezin dau iñok menperatu: origaitik bakoitzaren naiak, izateak, ontzat artu bear dira. Batak bestearena entzun.

Gizona mundu onetan ez dago geroago ta txarragoa izateko, gaiztoagotasuna barik onagotasuna bear dogu. Ta on bidea artzeko, iñork ez dau zapaldu bear: Askatasuna bear da.

Gizon bakoitzak bere jabetasuna dau, bere barruko askatasuna oiñarritzat daualarik. Barruko, jatorrizko askatasun onegaitik, bakoitzak gura dauan bidea artzeko eskubide osoak ditu. Au dala-ta, askatasunaren lenengo legea onek izan bear leuke, egian: Iñor ez sartzea besteen bideetan. Bakoitzari nai dauan bidea artzen utzitea.

Baiña...

Zelan askatasun oso bat, iñoren orrelako edo ezelako laguntasun bat barik? Gizonak besteen bear izana dau. Baita librea izateko ere. Osterantzean bere eziñaren morroia izango litzake beti.

2.—KONDAIRA EDO ISTORIA ANTZEKO BAT

Kondairan zear ikusi dogu zenbat aldiz ibilli diran gizonak askatasun deadarka. Zenbat garraxi. Zenbat negar ixuri arazo dituan itz onek. Gizaldi guztiak bere atzetik izan dira, naita zer zan jakin ez.

Orain, gaurko egunean, askatasuna era askotara aitzen da, gizarte kultura bidez, edo gizarte bakoitzaren erak beartuta. Iru azalpen labur jarri nai dodaz eman:

A) Erri-demokrazien askatasuna: Danok dakigu zeintzuk diran onek, edo onetariko batzuk: Rusia, Txina, t'abar. Baiña, nik akatz bat ikusten dot onetan: Ez dabe uartzen oso osorik bakoitzaren askatasuna; gizarte artu-emonak eta gizarte laguntzagaz urrutiegira doaz: Gizarte laguntza dabe elburutzat, gizon bakoitztasuna, bakoitzaren aunditasuna aizturik.

B) Liberal askatasuna: Onek, uste dot, urrutiegira joan dirala euren askatasun naiean. Liberalen gaia entzutetsua da: «Laissez faire», «Itxi egiten». Dana itxi, a etziran konturatu ezer ez eukeenekin. Diru gabe, aberastasun txiki bat gabe, ez euken ezelako erarik, ezta bizi izateko ere. Danok bear dogu zeozer, biziteko beste beintzat, askatasun pizka baten ibiltzeko: Estadu baten laguntza, ba, Estadua, gizarte guztia, erri osoa erdi bardintzeko sortzen da. Esate baterako, gaixoak, t'abar.

C) Bakoiztasunezko bidea: Bakoitzak bakoitzarena, norberarena. Bide onena aire ustez: Erdi-bidea. Gaitza da. Baiña aurretik jarri doguzan bide bien erditik ibilli bearra baiño ez dago. A ta B'ren erditik. Erdi bide ori bearrezkoa ikusten dot.

PELLO

(Jarraitzeko)

Euskaldunen Batasuna

Ezpaiñetik ezpaiñera, abotik abora; gaur egun, nabarmen darabilkigun itza orixe: Batasuna.

Bearrezkoa ote da?, nola egin bear da?, nork egin bear? Galderak eta galderak. Bakoitzak bere pentsaera azaltzeko eskubidea duelarik, ni nerea azaltzeko asmoakin nator.

Izkuntza aldetik, idazkera maillean, batzuk ari dira zenbait «metodo» ipintzen, batasun bat irixteko asmoakin. Gerora ere, etorriko dira beste batzuk, beren modura egingo duten batasuna eskeiñiaz.

Kultura eta pentsaera aldetik ere, beste batzuk (apika danak berdiñak izango dira) eskeintzen digute, zenbait gizonen jokaera, oiek eredu bezela jarririk.

Nere aldetik, galdera batzuk egitera ausartzen naiz. Batasun oiek erriarentzako egiñak al dira?, Euskal Erriarentzat, «metodo» oiekin egin bear al dira?, komeni al zaio erriari batasun ori?, batasun orren bitartez, erria jaikiko al da, nortasun bat lortzeko?

Euskaldunak, berez omen daukagu, alkartzeko, fama txarra, eta ortara irixtea bearrezkoa ba'da, eman dezaiogun gizon bakoitzari askatasun osoa, Euskalerriko nortasuna eskeiñiaz. Gure aurrekoak egindako lanak aztertu ditzagun, ikasi berak egindako lanak, eta aurrera jarraitu.

Esate baterako, Zer dakigu guk, Arana'n berri, Agirre'tzaz, gure aita, ta gure aurrekoen lanegaitik?, beren estuasunegaitik?, beren burrukegaitik?

Gazte askok, gaurko egoera larria ikusirik, arazo oien erantzuna nunbait, atzerriko zenbait gizonen pentzaeran arkitu dute, adibidez. Marx, Lenin, Che Gevara, Mao ta beste batzuk.

Segi dezadan nere galderekin: Zer egin dute, zer eskeiñi dute: Mao'k, Marx'ek, Che Guevara, Lenin'ek euskalerriagaitik? Neri atsegin zaizkit, gizon aben pentsaera batzuk, eta ez oienak bakarrik, baita beste askorenak ere. Baiña nik ezin ditut artu eredu bezela gizon oiek. Barrenak beste zerbait eskatzen dit, len esandako euskal abertzale zintzoak maite ditut. Izan ere oiek egin dute-ta, euskalerriagaitik lan sakona eta errikoia. Bakoitzak bere lurra jorratu bear dun eskeroz, guk egin dezagun gurea.

Jabetu gaitezen gure aurrekotzaz, aietako zenbaitek eman zuten bere bizia, beren ideiak salbo arkitzearren. Berak ez ba'ziran alegindu beren garaiean, gu gaur ze izango ote giñan: txinoak, rusoak? zer?... Odola eskeiñi zuten aieri nola erantzun bear diogu guk?

Aski da jandea naskatzea, batasun palsoak azaltzea, aski da besteeri beti kulpa botatzea, gure aurrekoen bizkar gaiñera ixurtzea, ainbeste astakeri.

Egoera larrian gabiltz bai, nork ukatu? eta egin dezagun batasuna, bearrezkoa da-ta, baiñan egin askatasun osoarekin, Euskaldunen batasuna askatasunean dago, ori ez ba'degu lortzen, bota dezaiogun kulpak, Mao'ri edo Mussolini'ri; edo zergaitik ez, gure buruari?... baiñan mesedez! ez! lenago lanean aritu danari.

Etorri dedilla ba'da euskaldunen batasuna, bide berriakin, baiñan gure zaarrak izan zituzten oiñarri berdiñakin.

RAMON ZAPIRAIN

AITOR'EN IZKUNTZ ZARRA

(Jarraipena)

Amatxo, erantzun nion
zure lur gañian
Belauniko jarrita
Otoitz egitean.

Euskeraz egingo det
Goiz ta arratsaldean
Biok zaudetelako
Neure biotzian.

Ez daukagu euskera
lotzaz bastertzeko
ainbat gutxigo berriz
oiñ azpiratzeko

Jainkoak eman zigun
Euskaldunentzako
Jaunan lege santurik
Ez dago ukatzeko.

Etzaiak aurka dabiltz
Euskeraren gaitik
Len, oraiñ eta beti
guztiz aspalditik.

Lurperatu nairikan
Antxiñ antxiñatik
ez dute ori lortuko
iñungo aldetik.

Euskera galdutzeko
Ez dago bildurrik
munduan ez da sortu
ortako indarrik.

Sasi-jakintsu asko
dabiltz galdu nairik
Asmo txar aiek guztiak
dirade alperrik.

Gora dezagun bada
Euskera laztana
gure asabengandik
ikasi genduna.

Pozgarrizko izkuntza
Maitatzen deguna
Biotz naigabetua
sendatzen diguna.

KONTU KONTARI

Upo'ko artzaiña azkarragoa telebistako tzaiña baiño

Beti, esatekotan nengoan.

Joan ziran Gabonak aldian-edo izango zan. Urrut-ikus, telebistako Jose M.ª Iñigo'k, jardun-aldi bat izan eban Upo'ko artzain igarlearekin. Beno; igarle bada edo ez bada, nik ori ez dakit. Baiña «Agur, luze aiña labur» dala, ori bai ekian. Alaxen agertu eban beintzat agerketa aretan.

Euren jarduna amaitu ebenean, esan eutson Iñigo'k:

—Ahora, salude usted a los suyos.

Eta bapatean, Upo'ko artzaiñak oiu egin eban:

—Agur... a todos.

—Yo le había dicho que saludara —erantzun eutson, irriparrez, telebistako jaun arek, «despeditzeko» ez eutsola agindu, esan guraz. Axe izan zan ukaondoa sartzea! Antxe agertu zan, Iñigo'k ez ekiala agurraren luzea norañokoa zan. Upo'ko artzaiñak bai. «Saludo» egokiagorik, itz gutxiagotan ezin eitekean egin.

Eta orain, azalpen onen azpian, geuk be esan daigun:

—«AGUR» zeiñentzat dogu?

—Euskaldun guzti-guztientzat! Egi-egitan, ziur-ziur, batasuna egiten dabena!

—Alan bada... EKIN ETA YARRAI!

ABELETXE

DEUSTUKO UNIBERSITATEA EUSKAL KULTUR MINTEGIA BILBAO

1972'ko apirilaren 12'an

Jaun agurgarriok: Hemen doakizue gure F. K. M.'ren ohar bat. Beroni tartetxo bat egingo bazeniote, eskertuko genizueke.

EUSKAL KULTUR MINTEGIAREN OHARRA

Jaun Euskaltzain batzuei Euskal Kultur Mintegiaren izenez inkesta bat egin omen zaielarik eta horri buruz horieriko zenbaitek argitasunak eskaturik, Euskal Kultur Mintegiko batzorde zuzendariak argi eta garbi jakinarazten du ez duela bat ere zer ikusirik haiekin eta, beraz, ez direla erakunde honek antolatutako zerbait bezala hartu behar.

Eskerrik asko aurretik eta zuek nahi duzuenerako gertu.

E. K. M. izenean
PATXI GOENAGA

Anboto'ko Kobean

(Jarraipena)

Eldu dio errapeari; titi epelak esnea dario... Mari'k biotza taupadaka... Esne-tantoak kalabaza barrura...

—Ene biotz...!

—Kutuna bearrezko!

Otarra bertan utzi ta korri Mari'k ibaian aldera. Biotzaren taupadak ariñak eta bizkorrak, pozaren-pozez, leertu bearrezkoak...!

* * *

Bular-artean kalabaza txikia, korrika dijoa maldan-gora Mari Anboto'ko koba-zulora:

—Ene biotz, gurea den kutuna!

—Segurutik...?

—Bai! Ta kutunakin batera Ursua'ren maitea... Jeiki ene biotz, ta bota zan irrintzi luzea...!

* * *

Aztiaren ate-aurrean Mari:

—Dan, dan...!

—Zeiñ da...?

—Mari-gorringo.

—Zer nai den...?

—Iru egun direla, kutun billa etorri nizaitzun ene Jaun ori...

—Bai...

—Esnea bear zendula kutuna egiteko...

—Leoi-emearen esnea.

—Nerekin dut esne ori. Ona emen!

Begiak dir-dir Mari'k zorion bete batean... Arro dio:

—Ona emen esne ori...! Zure agindua bete dut, ordez kutuna zor didazu...

—Emango dizut kutuna...

—Eman! Eman!

Biotza taupada larrian:

—Eman! Eman!

—Kutuna izango dezu...

—Au poza...

—Baiña aurretik galdera bateri erantzun.

—Nai dituzunak egiñ...

—Nun ta nola lortu dituzu esne-tanta oiek...?

—An da orrela lortu ditut esne-tanta oiek, jauna...

—Oraiñ kutuna bear duzu...?

—Bai, jauna, kutuna bear dut!

—Ona zuretzako kutunik ederrena: leoiakin egin duzuna egizu zure senarrarekin.

—Eneee biotzzz...!

A. ARRINDA



GURE «ORIXE» III

Eta zearbidez **Pio Aita Kaputxino Zauriduna**

Errebistaren izena ipiñi bear eban...

«Jainkoaren Billa» aitatutako «ORIXE»'ren mistiku-liburua, zer edo zer, egun oro, irakurri oi dodala, ona 104'garren orrialdean zer agertu yatan, Pio Aita Kaputxino Zauridunaz, puntu luzean, diñona.

Zati osoa, itzez-itz ipintzen dot, ez berbarik ezta komarik, be, alda bage:

«*Gure egunotan eskandalo aundi xamarrak gertatzen ari dira, ta anima zintzoak ez diote igerritzen berenez, eta besteen itzean babesturik, ontzat ematen dute berak baño geixago dakitenen itza. Praile batzun Errebista daukat aurrean, etä zertzuk esaten ditu. Ori irakurtzen duten gaxoai Ebanjelioko itza irudituko zaie, olako Errebistak edo olako prailek esan dula-ta. Diodan Errebista ori Aita Pio'rengaz mintzo da. Fotoak ere ba dakartzi berarenak. Bat... eskuetako zauriak fotografistari erakutsiz. Ori ez da Jesukristo'ren arikoa. Gauza oiek gordeak edukitzekoak dira:* **secretum meum mihi.** *Praile orrek dio gañera, norbait pekatu larriaren mende baldin ba'dago, gizon orrek ezagutzen dula, ta gure Jauna artzera joaten ba'da, pasa egiten dala aurrera, ari Jauna eman gabe. Nungo moralak agintzen du ori? Oietako bati «urdea» esaten dio,* **puerco,** *bat ere gizalegezko ez dana. Jesukristok berak esango ote luke olakorik? Nondik artzen ditu Aita Pio'k berri oiek? Ezin jakin. Nolanai ere, gauza oiek ez dirudite Jainkoaren arikoak».*

Onaiño «ORIXE»ren zatia, «Jainkoaren Billa» liburuaren 104 orrialdean Arri ta zur gelditu nintzan, «ORIXE»ren zati ori irakurri-ta. Argi dagoela, deritxot, gure «ORIXE»k ez ekiela ondo Pio Aita Kaputxinoaren arazoa. Eta Errebista arek ekarrena ikusi; ta bere «mistika»-yakintzagaz bardindu; ta alango gauza gordiñak adierazo zituzan.

Baiñan Errebista arrek dakarrena, arinkeria ta txoriburukeria besterik ezpaldin ba'da, orduan zer...? Orduan, zer oiñarri ta zer indar ta zer giar ete leuke, «ORIXE»k Pio Aita Kaputxinoaz idatzi dauenak?...

Ezer be ez. Balkoi ganetik aizera botaten diran jaboi-puspuluak, bertan bera yoaten diran legez; ta dagoneko ez ei dagoz, ez ei dira ageri: olango zerbait litzake «ORIXE»ren eritxia, be; besterik ez, Errebista arek diñona, arinkeria besterik ezpalitz.

Egun oro, bai datorkigu ainbat eta ainbat paper ta barrikari, tentelkeriaz ta iñozokeriaz ta kokolokeriaz beterik, egunean-egunean agertzen dana; ta iñork, be, yaramonik egiten ez dautsona.

Bapez balio ez daben idazkiak, utsez ta okerrez ta guzurrez beteak dagozanak. Nork ez ete daki, olangorik ba-dagoela gaur, ta ez gutxi gero?...

* * *

Baiñan, beti be, «ORIXE»-k, aipatzen dauan praille batzun Errebista, Pio Aita Zauridunaz alango barregarriak agertu zituzana, zein errebista dan ta zein idazle dan errebistan idatzi ebana, argi emon bear euskun yakitera. Orduan, artez-artez, erantzun aal izango geuntson, bai berari, baita errebisteari.

Baiñan ez euskun esan. Orrialdean bertan, azpiko oarkizun txikian izena ipintea, erraz-erraza zan. Baiñan ez euskun ipiñi. Zergatik ez?... «ORIXE»andiaren maltzurkeria?... Edo ez ekiela ondo Pio Aitaren arazoa; ta alan yakinezaren ausartian yauzi; ta esatera, be, ausartu?...

Agian, aren illoba, Aranalde'tar Yoseba Mirena apaiz yaunak bai bide daki. Esango ba'leusku, ni beintzat poztuko nintzake...

Erantzun daiogun orain «ORIXE»ri ta onek diñoskun errebistaria, illunargi dagoenari.

Au da «ORIXE»k dirauskun lenengo zera:

«*Diodan Errebista ori Aita Pio'rengaz mintzo da. Fotoak ere badakartzi berarenak. Bat... eskuetako zauriak fotografistari erakutsiz. Ori ez da Jesukristo'ren arikoa. Gauza oiek gordean idukitzekoak dira:* **secretum meum mihi».**

Erantzuna:

Errepublika egun areitan Ezkioga'n gertaturiko ikuskarietaz gomutetan naz; ta arein inguru esaten zana, agertuko dot lenengo.

Gazteiz'ko gotzai yaunak ikerlaria (bisitadorea) bialdu eban Ezkioga'ra. Umetxo batzuei Andra-Mari agertzen bide yakela; ta arein eskuak zauriturik egozela, esaten zan. Ikerlariak, sendagilleen batek lagundurik, ume arein eskuak ikusi ta aztertu gura ebazan. Umeek barriz erakutsi gura ez; ta arein etxekoek, be, ezer be ez egin orretarako. Eta gotzai yaunaren ordezkariak, ezin ikusiz ta ezin aztertuz umeen eskuetako zauriak, Gazteiz'era ziran barriro, ikusi ta aztertu barik.

Orduan esaten zana, auxe ei zan: «Eliz-agentariei erakutsi nai ez izateta eskuetako zauriak ta menik ez egitea, señale txarra zala. Zeruko gauza izan ba'litz, esanekoak izango zirala umetxo areik».

Izan, be, orixe izan da Pio Aitaren gertagia. Baiñan alderantziz: Ezkioga'koak ez eben obedezitu; eta Pio Aitak, danean eta beti, obedezitu egin eban; eta obedientziagaitik argazkiak ataraten, be, utzi bear izan eban.

Zauriak agertu yakozanean inguruko lagunei arein barri estaltzea, ez zan daitekena izan. Komentuko Nagusiak Erroma'ra igorri (bialdu) eban gaztigua; eta goiko Nagusien aginduz, asi ziran medikuek etortzen ta Pio Aitaren zauriak aztertzen ta aztertzen. Ta Pio Aitak utzi bear, Nagusien aginduari men egiñaz. Orregaitik beragaitik izugarrizko Kalbarioa eroan bear izaten ebala errukarriak!...

Erroma'tik eskuetako zaurien argazkiak eskatzen, be; ta Ordenako Nagusiek argazkiak atarazo, Erroma'ra bialduteko. Ta ortan fotografistek sartu; ta orrein bidez, bazterretara zabaldu Pio Aitaren zaurien argazkiak. Eta bera sufri-sufritzen egoela egite orrein bitartean!...

Asierako urteetan beintzat, bildurrez egoen egon, zauriak ez zirala zentikako gauza, gaxotasunetik etozenak baiño; ta agian gaxotasun txarretik etozenak!... Bularreko zauria, be, Jesukristo'k ez ebala euki, berak eukan alboan, bestean baiño; ta berea gorputz-larruaren gaxotasunen bat zala!...

Olan iñoan berak. Orregaitik, argazkiak ateratean ta zauriak medikuei erakutsi bearrean, Pio Aitak izan eban Kalbarioa ta lotsa ta yasan-bearra, ez dira erraz azaltzekoak...

Idazten dau ganera «ORIXE»k:

«*Gauza oiek ('zauriak' yakina) gordean eukitzekoak dira»:*

Edozeiñek dakian gauza da ori; «vulgaridad» bat da ori. Eta **berrogei ta amar urtez** iraun eban auzian, eritxi orregaz etortea orain, lelokeria besterik ez da. Pio Aitak gordean eukitea aal izan ba'leu, ez eban ainbat eta ainbat sufrituko!


Barriz be uste dot, gure «ORIXE»k ez ebala aitu ta ulertu Pio Aitaren auzia ta arazoa...

Irugarren atal au, be, luzatu yat; ta urrengoan yarraituko dautsot. Bitartean agur, irakurle; urrengora arte, Jainkoak gura ba'dau.

YURRE'TAR YULEN A. K.

KIROLAK

MUNGI'KO DANOK BAT



Urtero bezela, Jorraillaren 8'an, emen Mungi'n, Danok-Bat'en **txapelketako azken jokaldia ospatu zan. XIX txapelketea izan zan. Zenbaki oni begira, geure geurea dogun kirol au galtzen doala** Danok-Bat'eko **zuzendariak ikusirik, zelako alegiñakin eutsiten dautsoen ikusten da. Ta mungitarrak be ederto erantzun dabe, alan pelota-tokia beterik aurkitzen zan. Aurrera** Danok-Bat'eko **eratxaille gazteak, zuek alan jarraiturik, geurea dogun joko onek ez dau galtzerik izango-eta.**

Asierea, pelotari gaztetxoak emon eutsen, oso polita izan zan, ta mungiar gaztetxoak, euren eskola lagun guztiak laratak egin arren ezin irabazi izan eben. Elotz eta Zarraga'k, 12 urteko gaztetxoak, gogor joten eben, baiña azkenean olan geratu ziran: 16-14. Gure itxaropena Elotz-Zarraga gaztetxo bi oneitan imiñi geinkela uste dot.

Onein ondoren, Amezua-Urkijo'k, Morgado ta Iturriza'ren aurka, oneik gazte maillan jokatu eben. Jokoaldi onetan Amezua ta Urkijo izan ziran begikoen, baiña ez zan ain erreza izan irabaztea; ikusi zelan geratu ziran, 18-17. Amezua ta Urkijo'k 17-10'era eltzean irabazita euken jokoa, baiña ortik aurrera estu ibilli ziran.

Azkenez, beste mungitar bik, Ojinaga ta Elorrieta'k, Rekalde ta S. Vizente'ren aurka jokoaldi polita egin eben, baiña ez lar onegia joko aldetik. Mungiarreri, zoritxarreko «nerbioak» eldu eutsen, alan eta be, gogor jokatu eben, 22-19 azken oneitan ikusten dan lez. Esan bearra dogu, Rekalde-S. Vizente'ren urteak irabazi ebela, baiña Mungi'ko gazteak aurrera jarraituko dabe, ta datorren urtean geurea izango da.

Azkenean, sariak banandu ziran, euren artean txapelketa onetako pelotari onenarentzat, ta au Izagirre'k irabazi eban. Jokoaren tarte guztietan txistuak eta tanboliñak ez eben utsik egin, ta alan euskal giro eder baten igaro zan eguna.

Danok-Bat'en **izenean eskerrak Mungi ta inguruko errietatik etorri ziran guztieri, ta bere izenean, laster beste txapelketa bat izango dogula jakin-erazoten dot, Euskalerriko pelotaririk ospetsuenakaz.**

ETXEGARAI'TAR I.

Ta onenbeste irakurri ondoren, ara zer bururatu yakun AGUR'ekoeri. Zestua'n (ikusi Gure Kirolak, AGUR 34'gnean) gaztetxoen txapelketea izan dabe. An bertan ikastolearen alde jaiak egiten alegintzen dira. Zergaitik ez jokoaldi bi udan, Zestua'n eta Mungi'n, gazte ta gaztetxoen artean, bakoitzak bere ikastolearen alde?

BAYONA'KO GAZTEAK BILBAO'N

Jorraillaren 24, garrenean Bayona'ko Ekonomista gazteak Bilbo'ratu iakuzan. Ipar-aldeko euskaldunak be Europa'ra begira egon arren, ango laterriak aurrerapide barriak ez ba-damotsenez zearo emoten, txito atzeratuak dakuaguz egiz. Turismoa batetik ta arrainkuntza bestetik, Lapurdi aldeko Donibane-Loitzun'en, Miarritz ta Bayona uriburuan soillik (amarretik bederatzian dirala kantixu) begiztatu geinkez.

Benabar ta Zuberotarrak atan be, gazteak geien bat etxetik at eguneroko jakia billakatzeko bearrizen gorrian tamalez dagerkiguz. Lantegi gitxi ta berririk eregiteko itxura andirik ez antza. Nekazariek osoturiko lur-alderdiak doguz. Geienak txindiz-urritze ikaragarrian, bearrizan baltzarenetakoan dagerre.

Urtero bi milla biztanle gitxi gora bera erbesteratu oi dira. Gizonezkoak Amerikatara ta emakumeak, baserria uzteko guraz, Paris'era geien bat.

Orrela baserritarrak geroago ta urriago, mutil-zarrak ugariago ta mozkortiak be bardin samar. Egoera tamalgarri au ikusirik oba iake bai ipar-aldeko euskaldunei laguntza billa gugana etortea, gugandik (gu ere oraindikarren askoren bearrizanean ba' gagoz be) odolezko ta oiturazko anai doguzanok, zerbait lortu leikeela aurrerapidean ta lan billaketan beintzat dazaue-ta.

Bayona'ko Ekonomistai jarraituaz, euren egitarau betetzean lenen ta bein oraindik amaitu gabeko Bilbao-Beobia'ko auto-bide zabala ikertu eben.

Ondoren Petronor bere arriol lantegi-iraztegiekaz ikusi; Kai-alde barri ta zabalgunerako aukeratuak diran itxas-ertzak, bardin oraindio Bilbo'n ez dagonarren, Arteaga izentaturiko izugarrizko arroli-ontzi barriaren ta bere lagun izango diran beste biren zertzeladak batera ikasiaz, goizaldia amaitu eben. Gero eguerdian «Bilbao'ko Diru-etxeak» eskeñiriko bazkari gogoan-garrian, janaz batera euskal-dantza zoragarriak txastatu ebezan.

Egonaldi pozgarria benetan! Ez daitela egun bateko arazoa izan.

Gure ipar-aldeko anaiei al giñoan lagunbide izan gaitezan. Odolak ezezik, eleak, oiturak ta garaitiko lokarriak estuturik ta auñamendiko mendidiak aldendurik, bat gareala aitortu daigun, euren lantegiak loratu daiguzan, turismoa askartu ta iñundiko erbesteratze ori ezari-ezarian gitxitu ta ezerestu. Bestalde, artu-emonetan, teknika bideetan ta txindi arazoetan, gure eureganazko kateak sendotu, lokarriak areago estutu, itz batez alkar lagundu; eurekandik guk ere euskalekanduetan ta abar, zer ikasirik be ba-dogu-ta, nik uste.

ARREGI'TAR JOSU

Izarraitz'en ordu batzuk

Gure erriko mendizale taldekoak igandetik geyenetan dabe txangoren bat, batzuk kusgarriak, beste batzuk ez ainbeste, baiña danak izaten dabe zerbait atsegingarri dan zer-ikusiren bat, eta ori gogoan dogula, gu be askotan izaten gara orretarikoetan, ainbat ziurrago Gipuzko alderdiko mendiren batera danean, atsegiñago doguzalako mendi orreik euren garbitasunagatik, naita ler baltzez estalduten asiak izan orreik be azken aldian, baiña ori ta guzti, Bizkai'koak baiño garbiago aurkitzen dira, goyaldeak beintzat.


Alderdi batetik begiratuta, Gipuzkoa'ko mendien argitasunak bultzatuten gaitu, baiña ori asko izanik, geyago da gure Lurraldea ezagutu nayagaz batera euskaldun bizitza gurean indartuten dalako. Ez gara, ez, mendi orreitan aurkitzen garanean euskoagoak, toki guztietan gara-ta. Baiña bai euskaldunagoak, barra-barra, alderdi guztietan, euskera txukuna entzuten dogulako, Bizkai'ko mendietan baiño askotzaz geyago.

Orretariko txango bat, Izarraitz mendidi erpiñera egin genduan Jorraillaren bigarren igandean, ta naita leendik be an ibilliak izan, oraingoan baiño ariñago ta luzeago, beti aurkituten dogu or atsegingarriren bat. Eta ortarako, Azkarate gaiñetik Madariaga auzune argi baketsura eldu giñan, berebil andi ori bertan itxita, bidezabalez lenengo, ta gero burdibide ta bidezigorretatik, aurreko mendi gaiñera igon eta burdibide ortatik Kakueta, Xoxote ta abarreko moko zorrotzak ipar aldetik zearkatuz, Xoxote ta Erlo'ren bitartean dan mendi-lepora elduaz, gure arrazkian ikusten dan Erlo gaillurrera, aurreko bedar larretik gora ta gorago aitz mustur bitartetik igotzeko, Gipuzkoa'ko mendi guztietan lez, bertan dagon gurutze ondoraiño.

Ainbat mendigoizalekin aurkitu gintzaan bidean, geyen bat gipuzkoarrak, ez egoan onei nongoak ziran itandu bearrik, alderdi guztietan euskera txukunean mintzatuten ziralako; euron artean Azkoiti'ko «Anaitasuna» mendizale bazkuneko mutil eta gizon mordo bat. Jarrai orrelaxe azkoitiar gazorrak, inguru guztietan gure euskera txukuna entzun-arazoten!

Itzulkeran, gure taldeko geyenak, Xoxote gaillurrean mendizaleak orain urte batzuk jasotako Iñaki Deunaren oroigaillua ikustera joan ziran, baiña guretzat naikoa zan lupetzturik egoan bide luzea igarotea, ta beste baten bertara joateko asmoan etxeratu giñan.

EGILLETA IL DA.—Orixe zan, Jorrailaren 16'gnean gugaiño eldu zan izpar baltza, Arrieta'tar Amantzi, AGUR'aren irakurleen artean «Egilleta» izen ordeaz ezagutzen zan adizkide zintzo ta aberkide maitea il dala. Eta benetan samindu nintzan izpar orrekin. Nor zan euskalzale ori? Zornotza'n jayo zan orain irurogei ta lau edo bost urte, ta bertan azi ta ezi euskaltzale ta errizale zintzoenetariko lez, ta azken aldian Va-



lentzia'n bizi ba'zan be, bere ogibidea an ebalako, biotzez beti egoan Euskalerrian, baita soiñez be erea eukan guztian.

Bere gaztearoan, mendigoizalea izan zan —orregaitik dakargu bere izena orrialde ontara— aldi artako beste mendigoizale asko legez, baserririk-baserri ta mendirik-mendi euskal azia ereiten ibillitakoa zan. Azken aldian gure AGUR'ean argitalduten ziran bere ainbat idazlan laburtxu mamintsu. Oso zan Sabindar purrukatua ta, beraz, euskera garbi txukuna maite. Goyan Bego benetako euskaltzalea.

ALTUNA'TAR JOSU

ONA

ta

RAM

EZNEAK

ZUK

ONARTZEKOAK

DITUZU

KONTU KONTARI

Upo'ko artzaiña azkarragoa telebistako tzaiña baiño

Beti, esatekotan nengoan.

Joan ziran Gabonak aldian-edo izango zan. Urrut-ikus, telebistako Jose M.ª Iñigo'k, jardun-aldi bat izan eban Upo'ko artzain igarlearekin. Beno; igarle bada edo ez bada, nik ori ez dakit. Baiña «Agur, luze aiña labur» dala, ori bai ekian. Alaxen agertu eban beintzat agerketa aretan.

Euren jarduna amaitu ebenean, esan eutson Iñigo'k:

—Ahora, salude usted a los suyos.

Eta bapatean, Upo'ko artzaiñak oiu egin eban:

—Agur... a todos.

—Yo le había dicho que saludara —erantzun eutson, irriparrez, telebistako jaun arek, «despeditzeko» ez eutsola agindu, esan guraz. Axe izan zan ukaondoa sartzea! Antxe agertu zan, Iñigo'k ez ekiala agurraren luzea norañokoa zan. Upo'ko artzaiñak bai. «Saludo» egokiagorik, itz gutxiagotan ezin eitekean egin.

Eta orain, azalpen onen azpian, geuk be esan daigun:

—«AGUR» zeiñentzat dogu?

—Euskaldun guzti-guztientzat! Egi-egitan, ziur-ziur, batasuna egiten dabena!

—Alan bada... EKIN ETA YARRAI!

ABELETXE

DEUSTUKO UNIBERSITATEA EUSKAL KULTUR MINTEGIA BILBAO

1972'ko apirilaren 12'an

Jaun agurgarriok: Hemen doakizue gure F. K. M.'ren ohar bat. Beroni tartetxo bat egingo bazeniote, eskertuko genizueke.

EUSKAL KULTUR MINTEGIAREN OHARRA

Jaun Euskaltzain batzuei Euskal Kultur Mintegiaren izenez inkesta bat egin omen zaielarik eta horri buruz horieriko zenbaitek argitasunak eskaturik, Euskal Kultur Mintegiko batzorde zuzendariak argi eta garbi jakinarazten du ez duela bat ere zer ikusirik haiekin eta, beraz, ez direla erakunde honek antolatutako zerbait bezala hartu behar.

Eskerrik asko aurretik eta zuek nahi duzuenerako gertu.

E. K. M. izenean
PATXI GOENAGA

Anboto'ko Kobean

(Jarraipena)

Eldu dio errapeari; titi epelak esnea dario... Mari'k biotza taupadaka... Esne-tantoak kalabaza barru ra...

—Ene biotz...!

—Kutuna bearrezko!

Otarra bertan utzi ta korri Mari'k ibaian aldera. Biotzaren taupadak ariñak eta bizkorrak, pozaren-pozez, leertu bearrezkoak...!

* * *

Bular-artean kalabaza txikia, korrika dijoa maldan-gora Mari Anboto'ko koba-zulora:

—Ene biotz, gurea den kutuna!

—Segurutik...?

—Bai! Ta kutunakin batera Ursua'ren maitea... Jeiki ene biotz, ta bota zan irrintzi luzea...!

* * *

Aztiaren ate-aurrean Mari:

—Dan, dan...!

—Zeiñ da...?

—Mari-gorringo.

—Zer nai den...?

—Iru egun direla, kutun billa etorri nizaitzun ene Jaun ori...

—Bai...

—Esnea bear zendula kutuna egiteko...

—Leoi-emearen esnea.

—Nerekin dut esne ori. Ona emen!

Begiak dir-dir Mari'k zorion bete batean... Arro dio:

—Ona emen esne ori...! Zure agindua bete dut, ordez kutuna zor didazu...

—Emango dizut kutuna...

—Eman! Eman!

Biotza taupada larrian:

—Eman! Eman!

—Kutuna izango dezu...

—Au poza...

—Baiña aurretik galdera bateri erantzun.

—Nai dituzunak egiñ...

—Nun ta nola lortu dituzu esne-tanta oiek...?

—An da orrela lortu ditut esne-tanta oiek, jauna...

—Oraiñ kutuna bear duzu...?

—Bai, jauna, kutuna bear dut!

—Ona zuretzako kutunik ederrena: leoiakin egin duzuna egizu zure senarrarekin.

—Eneee biotzzz...!

A. ARRINDA



GURE «ORIXE» II

Eta zearbidez **Pio Aita Kaputxino Zauriduna**

Errebistaren izena ipiñi bear eban...

«Jainkoaren Billa» aitatutako «ORIXE»'ren mistiku-liburua, zer edo zer, egun oro, irakurri oi dodala, ona 104'garren orrialdean zer agertu yatan, Pio Aita Kaputxino Zauridunaz, puntu luzean, diñona.

Zati osoa, itzez-itz ipintzen dot, ez berbarik ezta komarik, be, alda bage:

«*Gure egunotan eskandalo aundi xamarrak gertatzen ari dira, ta anima zintzoak ez diote igerritzen berenez, eta besteen itzean babesturik, ontzat ematen dute berak baño geixago dakitenen itza. Praile batzun Errebista daukat aurrean, età zertzuk esaten ditu. Ori irakurtzen duten gaxoai Ebanjelioko itza irudituko zaie, olako Errebistak edo olako prailek esan dula-ta. Diodan Errebista ori Aita Pio'rengaz mintzo da. Fotoak ere ba dakartzi berarenak. Bat... eskuetako zauriak fotografistari erakutsiz. Ori ez da Jesukristo'ren arikoa. Gauza oiek gordeak edukitzekoak dira:* **secretum meum mihi.** *Praile orrek dio gañera, norbait pekatu larriaren mende baldin ba'dago, gizon orrek ezagutzen dula, ta gure Jauna artzera joaten ba'da, pasa egiten dala aurrera, ari Jauna eman gabe. Nungo moralak agintzen du ori? Oietako bati «urdea» esaten dio,* **puerco,** *bat ere gizalegezko ez dana. Jesukristok berak esango ote luke olakorik? Nondik artzen ditu Aita Pio'k berri oiek? Ezin jakin. Nolanai ere, gauza oiek ez dirudite Jainkoaren arikoak».*

Onaiño «ORIXE»ren zatia, «Jainkoaren Billa» liburuaren 104 orrialdean

Arri ta zur gelditu nintzan, «ORIXE»ren zati ori irakurri-ta. Argi dagoela, deritxot, gure «ORIXE»k ez ekiela ondo Pio Aita Kaputxinoaren arazoa. Eta Errebista arek ekarrena ikusi; ta bere «mistika»-yakintzagaz bardindu; ta alango gauza gordiñak adierazo zituzan.

Baiñan Errebista arrek dakarrena, arinkeria ta txoriburukeria besterik ezpaldin ba'da, orduan zer...? Orduan, zer oiñarri ta zer indar ta zer giar ete leuke, «ORIXE»k Pio Aita Kaputxinoaz idatzi dauenak?...

Ezer be ez. Balkoi ganetik aizera botaten diran jaboi-puspuluak, bertan bera yoaten diran legez; ta dagoneko ez ei dagoz, ez ei dira ageri: olango zerbait litzake «ORIXE»ren eritxia, be; besterik ez, Errebista arek diñona, arinkeria besterik ezpalitz.

Egun oro, bai datorkigu ainbat eta ainbat paper ta barrikari, tentelkeriaz ta iñozokeriaz ta kokolokeriaz beterik, egunean-egunean agertzen dana; ta iñork, be, yaramonik egiten ez dautsona.

Bapez balio ez daben idazkiak, utsez ta okerrez ta guzurrez beteak dagozanak. Nork ez ete daki, olangorik ba-dagoela gaur, ta ez gutxi gero?...

* * *

Baiñan, beti be, «ORIXE»-k, aipatzen dauan praille batzun Errebista, Pio Aita Zauridunaz alango barregarriak agertu zituzana, zein errebista dan ta zein idazle dan errebistan idatzi ebana, argi emon bear euskun yakitera. Orduan, artez-artez, erantzun aal izango geuntson, bai berari, baita errebisteari.

Baiñan ez euskun esan. Orrialdean bertan, azpiko oarkizun txikian izena ipintea, erraz-erraza zan. Baiñan ez euskun ipiñi. Zergatik ez?... «ORIXE»andiaren maltzurkeria?... Edo ez ekiela ondo Pio Aitaren arazoa; ta alan yakinezaren ausartian yauzi; ta esatera, be, ausartu?...

Agian, aren illoba, Aranalde'tar Yoseba Mirena apaiz yaunak bai bide daki. Esango ba'leusku, ni beintzat poztuko nintzake...

Erantzun daiogun orain «ORIXE»ri ta onek diñoskun errebistaria, illunargi dagoenari.

Au da «ORIXE»k dirauskun lenengo zera:

«*Diodan Errebista ori Aita Pio'rengaz mintzo da. Fotoak ere badakartzi berarenak. Bat... eskuetako zauriak fotografistari erakutsiz. Ori ez da Jesukristo'ren arikoa. Gauza oiek gordean idukitzekoak dira:* **secretum meum mihi».**

Erantzuna:

Errepublika egun areitan Ezkioga'n gertaturiko ikuskarietaz gomutetan naz; ta arein inguru esaten zana, agertuko dot lenengo.

Gazteiz'ko gotzai yaunak ikerlaria (bisitadorea) bialdu eban Ezkioga'ra. Umetxo batzuei Andra-Mari agertzen bide yakela; ta arein eskuak zauriturik egozela, esaten zan. Ikerlariak, sendagilleen batek lagundurik, ume arein eskuak ikusi ta aztertu gura ebazan. Umeek barriz erakutsi gura ez; tan arein etxekoek, be, ezer be ez egin orretarako. Eta gotzai yaunaren ordezkariak, ezin ikusiz ta ezin aztertuz umeen eskuetako zauriak, Gazteiz'era ziran barriro, ikusi ta aztertu barik.

Orduan esaten zana, auxe ei zan: «Eliz-agentariei erakutsi nai ez izatea eskuetako zauriak ta menik ez egitea, señale txarra zala. Zeruko gauza izan ba'litz, esanekoak izango zirala umetxo areik».

Izan, be, orixe izan da Pio Aitaren gertagia. Baiñan alderantziz: Ezkioga'koak ez eben obedezitu; eta Pio Aitak, danean eta beti, obedezitu egin eban, eta obedientziagaitik argazkiak ataraten, be, utzi bear izan eban.

Zauriak agertu yakozanean inguruko lagunei arein barri estaltzea, ez zan daitekena izan. Komentuko Nagusiak Erroma'ra igorri (bialdu) eban gaztigua, eta goiko Nagusien aginduz, asi ziran medikuek etortzen ta Pio Aitaren zauriak aztertzen ta aztertzen. Ta Pio Aitak utzi bear, Nagusien aginduari men egiñaz. Orregaitik beragaitik izugarrizko Kalbarioa eroan bear izaten ebala errekarriak!...

Erroma'tik eskuetako zaurien argazkiak eskatzen, be; ta Ordenako Nagusiek argazkiak atarazo, Erroma'ra bialduteko. Ta ortan fotografistek sartu; ta orrein bidez, bazterretara zabaldu Pio Aitaren zaurien argazkiak. Eta ben sufri-sufritzen egoela egite orrein bitartean!...

Asierako urteetan beintzat, bildurrez egoen egon, zauriak ez zirala zertikako gauza, gaxotasunetik etozenak baiño; ta agian gaxotasun txarretik etozenak!... Bularreko zauria, be, Jesukristo'k ez ebala euki, berak eukan alboan bestean baiño; ta berea gorputz-larruaren gaxotasunen bat zala!...

Olan iñoan berak. Orregaitik, argazkiak ateratean ta zauriak medikuk erakutsi bearrean, Pio Aitak izan eban Kalbarioa ta lotsa ta yasan-bearra, ta dira erraz azaltzekoak...

Idazten dau ganera «ORIXE»k:

«*Gauza oiek ('zauriak' yakina) gordean eukitzekoak dira»:*

Edozeiñek dakian gauza da ori; «vulgaridad» bat da ori. Eta **berrogei** aldiz **amar urtez** iraun eban auzian, eritxi orregaz etortea orain, lelokeria besterik ez da. Pio Aitak gordean eukitea aal izan ba'leu, ez eban ainbat eta ainbat sufritzen.


Barriz be uste dot, gure «ORIXE»k ez ebala aitu ta ulertu Pio Aitaren auzia ta arazoa...

Irugarren atal au, be, luzatu yat; ta urrengoan yarraituko dautsot. Bitartean agur, irakurle; urrengora arte, Jainkoak gura ba'dau.

YURRE'TAR YULEN A. K.

KIROLAK

MUNGI'KO DANOK BAT



Urtero bezela, Jorraillaren 8'an, emen Mungi'n, Danok-Bat'en **txapelketako azken jokaldia ospatu zan. XIX txapelketa izan zan. Zenbaki oni begira, geure geurea dogun kirol au galtzen doala** Danok-Bat'eko **zuzendariak ikusirik, zeako alegiñakin eutsiten dautsoen ikusten da. Ta mungitarrak be ederto erantzun dabe, alan pelota-tokia beterik aurkitzen zan. Aurrera** Danok-Bat'eko **eratzaille gazteak, zuek alan jarraiturik, geurea dogun joko onek ez dau galtzerik izango-eta.**

Asierea, pelotari gaztetxoak emon eutsen, oso polita izan zan, ta mungiar gaztetxoak, euren eskola lagun guztiak zaratak egin arren ezin irabazi izan eben. Elotz eta Zarraga'k, 12 urteko gaztetxoak, gogor joten eben, baiña azkenean olan geratu ziran: 16-14. Gure itxaropena Elotz-Zarraga gaztetxo bi oneitan imiñi geinkela uste dot.

Onein ondoren, Amezua-Urkijo'k, Morgado ta Iturriza'ren aurka, oneik gazte maillan jokatu eben. Jokoaldi onetan Amezua ta Urkijo izan ziran begikoen, baiña ez zan ain erreza izan irabaztea; ikusi zelan geratu ziran, 18-17. Amezua ta Urkijo'k 17-10'era eltzean irabazita euken jokoa, baiña ortik aurrera estu ibilli ziran.

Azkenez, beste mungitar bik, Ojinaga ta Elorrieta'k, Rekalde ta S. Vizente'ren aurka jokoaldi polita egin eben, baiña ez lar onegia joko aldetik. Mungiarreri, zoritxarreko «nerbioak» eldu eutsen, alan eta be, gogor jokatu eben, 22-19 azken oneitan ikusten dan lez. Esan bearra dogu, Rekalde-S. Vizente'ren urteak irabazi ebela, baiña Mungi'ko gazteak aurrera jarraituko dabe, ta datorren urtean geurea izango da.

Azkenean, sariak banandu ziran, euren artean txapelketa onetako pelotari onenarentzat, ta au Izagirre'k irabazi eban. Jokoaren tarte guztietan txistuak eta tanboliñak ez eben utsik egin, ta alan euskal giro eder baten igaro zan eguna.

Danok-Bat'en **izenean eskerrak Mungi ta inguruko errietatik etorri ziran guztieri, ta bere izenean, laster beste txapelketa bat izango dogula jakin-erazoten dot, Euskalerriko pelotaririk ospetsuenakaz.**

ETXEGARAI'TAR I.

Ta onenbeste irakurri ondoren, ara zer bururatu yakun AGUR'ekoeri. Zestua'n (ikusi Gure Kirolak, AGUR 34'gnean) gaztetxoen txapelketea izan dabe. An bertan ikastolearen alde jaiak egiten alegintzen dira. Zergaitik ez jokoaldi bi udan, Zestua'n eta Mungi'n, gazte ta gaztetxoen artean, bakoitzak bere ikastolearen alde?

BAYONA'KO GAZTEAK BILBAO'N

Jorraillaren 24, garrenean Bayona'ko Ekonomista gazteak Bilbo'ratu iakuzan. Ipar-aldeko euskaldunak be Europa'ra begira egon arren, ango laterriak aurrerapide barriak ez ba-damotsenez zearo emoten, txito atzeratuak dakuaguz egiz. Turismoa batetik ta arrainkuntza bestetik, Lapurdi aldeko Donibane-Loitzun'en, Miarritz ta Bayona uriburuan soillik (amarretik bederatzian dirala kantixu) begiztatu geinkez.

Benabar ta Zuberotarrak atan be, gazteak geien bat etxetik at eguneroko jakia billakatzeko bearrizen gorrian tamalez dagerkiguz. Lantegi gitxi ta berririk eregiteko itxura andirik ez antza. Nekazariek osoturiko lur-alderdiak doguz. Geienak txindiz-urritze ikaragarrian, bearrizan baltzarenetakoan dagerre.

Urtero bi milla biztanle gitxi gora bera erbesteratu oi dira. Gizonezkoak Amerikatara ta emakumeak, baserria uzteko guraz, Paris'era geien bat.

Orrela baserritarrak geroago ta urriago, mutil-zarrak ugariago ta mozkortiak be bardin samar. Egoera tamalgarri au ikusirik oba iake bai ipar-aldeko euskaldunei laguntza billa gugana etortea, gugandik (gu ere oraindikarren askoren bearrizanean ba' gagoz be) odolezko ta oiturazko anai doguzanok, zerbait lortu leikeela aurrerapidean ta lan billaketan beintzat dazaue-ta.

Bayona'ko Ekonomistai jarraituaz, euren egitarau betetzean lenen ta bein oraindik amaitu gabeko Bilbao-Beobia'ko auto-bide zabala ikertu eben.

Ondoren Petronor bere arriol lantegi-iraztegiekaz ikusi; Kai-alde barri ta zabalgunerako aukeratuak diran itxas-ertzak, bardin oraindio Bilbo'n ez dagonarren, Arteaga izentaturiko izugarrizko arroli-ontzi barriaren ta bere lagun izango diran beste biren zertzeladak batera ikasiaz, goizaldia amaitu eben. Gero eguerdian «Bilbao'ko Diru-etxeak» eskeñiriko bazkari gogoan-garrian, janaz batera euskal-dantza zoragarriak txastatu ebezan.

Egonaldi pozgarria benetan! Ez daitela egun bateko arazoa izan.

Gure ipar-aldeko anaiei al giñoan lagunbide izan gaitezan. Odolak ezezik, eleak, oiturak ta garaitiko lokarriak estuturik ta auñamendiko mendidiak aldendurik, bat gareala aitortu daigun, euren lantegiak loratu daiguzan, turismoa askartu ta iñundiko erbesteratze ori ezari-ezarian gitxitu ta ezerestu. Bestalde, artu-emonetan, teknika bideetan ta txindi arazoetan, gure eureganazko kateak sendotu, lokarriak areago estutu, itz batez alkar lagundu; eurekandik guk ere euskalekanduetan ta abar, zer ikasirik be ba-dogu-ta, nik uste.

ARREGI'TAR JOSU

Izarraitz'en ordu batzuk

Gure erriko mendizale taldekoak igandetik geyenetan dabe txangoren bat, batzuk ikusgarriak, beste batzuk ez ainbeste, baiña danak izaten dabe zerbait atsegingarri dan zer-ikusiren bat, eta ori gogoan dogula, gu be askotan izaten gara orretarikoetan, ainbat ziurrago Gipuzko alderdiko mendiren batera danean, atsegiñago doguzalako mendi orreik euren garbitasunagatik, naita ler baltzez estalduten asiak izan orreik be azken aldian, baiña ori ta guzti, Bizkai'koak baiño garbiago aurkitzen dira, goyaldeak beintzat.


Alderdi batetik begiratuta, Gipuzkoa'ko mendien argitasunak bultzatuten gaitu, baiña ori asko izanik, geyago da gure Lurraldea ezagutu nayagaz batera euskaldun bizitza gurean indartuten dalako. Ez gara, ez, mendi orreitan aurkitzen garanean euskoagoak, toki guztietan gara-ta. Baiña bai euskaldunagoak, barra-barra, alderdi guztietan, euskera txukuna entzuten dogulako, Bizkai'ko mendietan baiño askotzaz geyago.

Orretariko txango bat, Izarraitz mendidi erpiñera egin genduan Jorraillaren bigarren gandean, ta naita leendik be an ibilliak izan, oraingoan baiño ariñago ta luzeago, beti aurkituten dogu or atsegingarriren bat. Eta ortarako, Azkarate gaiñetik Madariaga auzune argi baketsura eldu giñan, berebil andi ori bertan itxita, bidezabalez lenengo, ta gero burdibide ta bidezigorretatik, aurreko mendi gaiñera igon eta burdibide ortatik Kakueta, Xoxote ta abarreko moko zorrotzak ipar aldetik zearkatuz, Xoxote ta Erlo'ren bitartean dan mendi-lepora elduaz, gure argazkian ikusten dan Erlo gaillurrera, aurreko bedar larretik gora ta gorago aitz mustur bitartetik igotzeko, Gipuzkoa'ko mendi guztietan lez, bertan dagon gurutze ondoraiño.

Ainbat mendigoizalekin aurkitu gintzazan bidean, geyen bat gipuzkoarrak, ez egoan onei nongoak ziran itandu bearrik, alderdi guztietan euskera txukunean mintzatuten ziralako; euron artean Azkoiti'ko «Anaitasuna» mendizale bazkuneko mutil eta gizon mordo bat. Jarrai orrelaxe azkoitiar gatorrak, inguru guztietan gure euskera txukuna entzun-arazoten!

Itzulkeran, gure taldeko geyenak, Xoxote gaillurrean mendizaleak orain urte batzuk jasotako Iñaki Deunaren oroigaillua ikustera joan ziran, baiña guretzat naikoa zan lupetzturik egoan bide luzea igarotea, ta beste baten bertara joateko asmoan etxeratu giñan.

EGILLETA IL DA.—Orixe zan, Jorrailaren 16'gnean gugaiño eldu zan izpar baltza, Arrieta'tar Amantzi, AGUR'aren irakurleen artean «Egilleta» izen ordeaz ezagutzen zan adizkide zintzo ta aberkide maitea il dala. Eta benetan samindu nintzan izpar orrekin. Nor zan euskalzale ori? Zornotza'n jayo zan orain irurogei ta lau edo bost urte, ta bertan azi ta ezi euskaltzale ta errizale zintzoenetariko lez, ta azken aldian Va-



lentzia'n bizi ba'zan be, bere ogibidea an ebalako, biotzez beti egoan Euskalerrian, baita soiñez be erea eukan guztian.

Bere gaztearoan, mendigoizalea izan zan —orregaitik dakargu bere izena orrialde ontara— aldi artako beste mendigoizale asko legez, baserririk-baserri ta mendirik-mendi euskal azia ereiten ibillitakoa zan. Azken aldian gure AGUR'ean argitalduten ziran bere ainbat idazlan laburtxu mamintsu. Oso zan Sabindar purrukatua ta, beraz, euskera garbi txukuna maite. Goyan Bego benetako euskaltzalea.

ALTUNA'TAR JOSU

ONA

ta

RAM

EZNEAK

ZUK

ONARTZEKOAK

DITUZU

MARKIÑA'ko KALEAK

Erriko giroa aldatuaz doa Markiña'n. Aldakuntza au, kanpokoa (azalekoa) da ta lenengo begiradan ikusten dogu. Barruko giro-aldatzeak ere izango dira gure artean, jakiña!, bizirik gagoz-ta. Baiña gaurko nire idazlan au, azaleko aldakuntza batzuen inguruan izango da.

Erriko plaza, pelota-toki ta kaleak apaintzeari emon dautse gure erriko agintariak. Erriak, zetan esan ere ez, ondo ikusten ditu barrizte-lan oneek. Gure erriak, merezi ere ondo merezi dau apainketa ori; olako zerbait egin bear zan, bai. Gauzarik geienak onartu arren, ba-dago zerbait... nik ulertu ezin dodana: kaleen izen barriak. Markiña'ko kaleak, antxiña baten, bein eta betiko bateatuak izango zirala uste neban nik neuk, baiña oker nengoan, antza. Orain, egun batetik bestera, kale-buruetan idazkun (letrero) barriak agertu dira. Oso dotoreak. Dirutxoa balioko dabe orreek, bai orixe! Eta idazkun barrietan, izen barriak. Jazoera onek, lenengoetan barrua mingostu eustan apur bat. Gero, gauzak astiro aztertzea ona izaten dala esan neban neure artean, laprastadariak ez egiteko. Neure buruari emondako kontsejutxu ori jarraituz, kondaira-liburuetara jo dot. Lenengo eskuetan artu dodana J. J. Mugartegi'ren LA VILLA DE MARQUINA izan da. 1927'gn urtean idatzitako liburua. Zurtz eginda, arrituta geratu naz. MUGARTEGI'k gaurko idazkun barrietan dagozenez, bardin-bardin dakarz kale-izenak:

Calle de Oquerra; *Calle de Ciar-calle;* *Calle de Güen calia*

(bi puntu ta guzti): *Calle del Medio* (olantxe, erderaz...) Orain ipiñi diran izenak, Mugartegi'ren liburu au aztertu ondoren idatziak dirudie.

Guk, eta batez ere berton jaiotakoak, beste izen oneek ezagutu ditugu aspaldiko urteetan:

Calle de Cale Oquerra; *Calle de Guen Calia;* *Calle de Ciar Calia;* *Calle de Erdico Calia*

Egia esan, leengo idazkun oneek ipiñi zituenak ere ez ekien, antza KALE itzak erderaz CALLE esan nai dauanik. CALLE DE ezarri bear aurretik, bada-ezpadan...

Baiña nire jakin-naia ez da emen amaitu. Markiña erri-barruko kaleak oso zaarrak dira. Markiña erri lez eraikia izan zanekoak, ziur-ziur. Eta lau kaletatik iruri euskal-izena jarri ta laugarrenari erderazkoa?... Zer dala-ta? Ezin dot aitu. Norbaitek egindako itzulpena edo izen-aldatzea ez danik, ezin nik burutik kendu.

Orrelakoak, atan be, ez dira bein edo birritan bakarrik jazo Euskalerrian. Euskal-izenak «batzuentzat» ikasi-eziñak-edo dira. Au idazten dauanak, badaki pizka bat onen barri. Amaikatxo bider aldrebeztu dauste abizena, ta beste batzuetan erdizka ipiñi.

Jakin-miñak eraginda, beste liburu mardul bat artu dot esku-artean: GEOGRAFIA GENERAL DEL PAIS VASCO-NAVARRO. Ona emen liburu onetan datozen gure erriko kale-izenak:

CALE OQUERRA; GOEN CALIA; CIAR CALIA; ERDICO CALIA.

GOEN CALIA izenaren ordez, planoan, AMORE CALIA dakar, baiña ori, kale onen gaitz-izena dala dirudi.

Liburu onetan Markiña'ko erriari buruz ipiñi diranak, MUGARTEGI baiño «autore» zaarragoetatik artuta dagoz, ondoren dakarren Bibliografian ikusi daikegunez. Augaitik, oneek dira, ez besteak, Markiña'ko kaleen izan jatorrak.

Argitasun au emotean, ez naz sartzen iñondik ere, agintarien asmoetan. Eurak jakingo dabe zergaitik egin daben olan. Baiña guztiok ibilli bear dogu egi-billa; eta gure erria azaletik bakarrik ez apaindu, batez ere, barrutik baiño. Zelan? Beronen izen, oitura, izakera ta izkuntzari begirapen (errespeto) aundia izanaz. Erria, izan ere, ez da batena edo birena, guztiona baiño. Erri bat, bertan jaio diranak eta kanpotik etorrita bertakotu diranen artean egiten edo osotzen da. Erria, pertsonak osotzen dogu eta Markiña'ko erria, pertsona EUSKALDUNAK. Erri-agintariak, jator jokatu nai ba'dabe, au kontuan artu bear dabe. Iñor ezin daiteke agertu erriaren jaun eta jabe, agintari izan arren. Erria ez da batera naiz bestera erabilli leiken artalde bat. Markiña erri euskaldun bat da, eta orrela, erri euskaldun lez zaindu ta aurrera eroateko ardurea danok izan bear dogu. Augaitik, gure Kale bat erderazko izenez geiagoko barik bateatzea ez jat atsegin izan. Gure kaleak izen ederrak daukez; zaar-kutsua darioen euskal-izen ederrak. Zergaitik aldatu?...

BARAIAZARRA'TAR LUIS

INDIA'KO ENTZUTEKOAK

Emen laburki esango dodazanak mixiolari bateri entzunda daukodaz.

Andik etorri ondoren beragaz aurrez-aurre negoala, asi yatan borbor berbaka orduerdian ango gauza danak neuri esan guraz.

Baiña asikeran esan eustan: «Bei sakratuei buruz ez itandu, au danak itanduten daustelako. Gaiñera, Europa'n be badagoz orrelango bei sakratuak, gauza ukutu eziñak, orretariko mito, ipuin guzurrak».

India'ko mixiolari'ak yñostan, atsekabe zala berarentzat ezin arduratu, laguntza emotea eskatuten eutsen guztiai. Illero jayoten diran milloi luze umeak erriliburu (registro civil) barik, atsekabe aundia da edozeintzako. Europa'n entzuten danean milloi ta milloi igestari direla, ogi, etxe, ta senide baga errukarritzat izaten da.

Bere lan eta laguntzaz gizadi anaitasuna agertzen eban. Jente, gizataldeak eskarbide yakozan ta ulertzen eutsen. Askotan esaten eutsoen: «Ona ta aundia izan bear da zeure Jaungoikoa zeu onaiño etorteko Beragaitik».

Eri, gaixo ugarienak odol-urri (anemia) ta estetako zurrupakari dira, Tetanoa *be sarri ume jayo-barrietan, euren xilko-estea gaiñibetaz ebagitzen dautsielako, aizto, gaiñibeta ori ugartuta egonarren be.*

Ba-daukie oitura itxusia, bei done pekorotzakin eriak sendatzean. Eri, gaixo lizunkerizkoak sarri naiko dira.

Neskatillak ezin dira mutillakin batera egon ta euren artean berba egin bez. Amak semeai ez dautsee mosurik emoten. Yñok eztauz eskuak laztanduten agur egitean. Au gauza bakana, neskatoak eztira eurak eskonduten; euren gizonak ezagutu barik gurasoak eskontzen dabez. Eztaukie nortasunik, ez dira etxeko gauza edo abere batzuk baiño, bakarrik semeak egiteko, ta seinbakoak, ostera gurasoakana oxpa. Andra ospetsu Indira Gandhi emakume baiño errelijio-mitoa da eurentzako, Indiatarrentzat.

Nire lagun mixiolari au ospetsua da euren artean. Asko gura, ta esan geinke, jainko bat lez gurtuten dabela. Sarri askotan diñotsoe: «Aita, ama ta jainkoa zara zu niretzat». «Katoliko ta protestantek batera kristau mezua erakutsi, zabaldu ta adirazten dogu. Ekumenismoa egituzten da gure artean. Bonbay'ko ikastetxenagusian jesuita bi dagoz eta katoliko bi bere laterriko Lege-Batzarrean. Kristo-ganatu diranentzat europeratutzea ta sarkaldutea kristautasuna zabaltzerako asmakizun zail eta aundiena izan da orain arte India'n. Bateatzean europar izenak ipinten ziran, jantziz, eliz-arau ta oituraz emendik eroandakoak. Gaur ez dago arazo ori kristau-legea indiartu dalako. Alan be, kardenal Gracias'ek Erroma'ko era, arau ta oituren zalekeria dau ondiño».

Bai ete dira India'n kristau elizkizunetan eliz-arauak? «Gaur indiatar izagai al guztiak sarrarazi ta argiratu dira. Belauniko ordez, eskuak batuta buru makurturik; kedatz, intzentsorik ez, bai sandalatze adar usein gogor ta ederra. Ur bedeinkatuaren ordez sandalo egurren autsak; kasulla, meza jantziaren ordez, kurta indiatarren txamarra. Meza eskeintzean (ofertorioan) ango erara kokomarro ta lorak eskeintzen dira. Nobizi-aroan kristau ildumaren ordez, yoga *egiten da, gogoaren askatasuna lortzeko».*

«Orain, onbidetu ta kristoganatzen diranak geiago dira, ez asko. Baiña jakin bear da, induetarrek Jaungoikoagana elduteko bide guztiak onak dirala uste dabe, 'bide-xidor guztiak mendi tontorrera erooten daben lez'. Orrez ganera, alderdi batzuetan galerazo debekatzen dira errelijiobiurtze ta aldaketak».

«Bokaziño, jainko-dei batzuk ba-dagoz India'n, Kerala'n asko, Kerala'ko neskatillak entzutea daukie, India guztian, zorizaleak dirala. Orain aldi asko ez dala izparringiak erabillen indiatar lekaime-gaten Europa'ri saltzea deitzen zana. Saltzerik ez egoan, bai ausarkeri garrantziduna psikolojiz gitxi elduriko neskatillak bialtzean».

India'ko gertaera oneik jakingo ebazan irakurle irakurgai zaleak, baiña guztiak ez. Neuri esan eustazan mixiolari batek emen egon zanean. Ortik, andik zear, Europa'ko tokietan ibillita gero, ba-doia barriro ara, bere India'ra, Kristo'ren usain gozo ederra, sandaloa langoa, zabaltzera.

LETONA

CASCO VIEJO

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

TENDERIA

Boutique
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

ERRIETAKO BERRIAK

Zeanuri

Baten baiño geiago neure euskal itz zaletazunaz, Gorbeatarra'k esan eban lez, geure erri onen izena albistari onetan izan deiten, ezozer idazten noa.

Gorbeatarra'k esan eban lez, nik be ez dot eukiten zer idatzi, baiña orain gure oporraldiari buruz idatzi nai dot.

Oporraldi oneitan Aste Santua izan dogu aste onetan iru egunean Gorbei-aldetik izan naz, aterpe baten lanean. Nai ta denpora txarra izan, mendi alde onetara, talde asko ibilsi doguz gora ta gora igoten.

Egun baten denpora txarra zala-ta, talde asko gengozala, batek esan eban: sasoi onaz ordozein joaten da, baiña meritua txarragaz joateak dauko! Ori bai mendizaletasuna!

Gure Aterpearen ondoan dago Intxaurbe'ren Izkuta tokia; an egoan neska talde bat, Bilbao, Galdakano ta Lemona'koak eurak ondo artuak izan ziran gure artean eta gu be bai euren artean. Beargin aundiak izan ziran, eta eskerrik asko guri egin dauskuezan mezedeakaitik.

Iru egun orreitan batetik-bestera ibilli naz eta gauza motsak ikusi dodaz Gorbei baterako, baita be barriro emengo aterpe baten ate bat apurtuta agertu da, ze gauza tamalgarria!

Lengoan esan neban lez danok alegindu gaitezan iñoren gauzeri jaramon egiten.

ARTZAIÑERI.—Agur esan bear Gorbea'ko artzaiñeri; oin amabost urte ogei arzain izan ba'genduzan, orain bost edo sei bakarrik doguz. Aurten artzain bi gitxiagok, Gorbea'ra igongo dabe euren lana egiten: Bata Antonio Ozerinmendi'koa Agiñargo arzain izan dana, eta bestea Julian, Muñigi'koa, Altamiñape'ko artzaiña.

Agur bat eureri eta zorion aundia izan dagiela euren lan barrian.

GAZTEAI.—Agur bat irakurle guztiai bialduez, dei bat egin gura dautset gure erri ta auzoetako gazte guztiai, idatzi dagiezela euren errietako barriak edo eurak esan gura dabezan gauza guztiak.

Arratia aldetik bi edo iruk bakarrik jarraituten dautsagu lan oneri, baiña ondo izango liteke, idazle barriak urtengo ba'leukie.

ZEBERIO'TARRAI.—Agur biotzeko bat, erri onetako gazte guztiai! Amabosterik amabostera, irakurten izan dogu albistari au, baiña ez dogu erri onetako gora-berarik ikusi.

Zer ete da? ez dago zer esanik? edo nagikeri aundia ete dago ba?

Nire ustez Zeberio'n gazte asko dago lan oneri jarraituteko, eurak nai ba'leukie.

Ba-dakit irakurten dabela albistari au; zergatiño ez idatzi onetara?

Ezagutzen dot erri onetan Erzilla'tar M.ª Angeles irakurle zuzena, baiña bere lagunakaz gazteleraz itz egiten dau; ia ba neskato! eure izkuntzari jaramoten dautsan!

Beste mutil bi be izan bear dabe erri onetan, euren lagunakaz, bein gazteleraz eta bein euskeraz egiten dabenak, onei be agur bat, euskaldun izaten jarraitu dagiela esanez, eta parkatu dagiela, nik euretariko batzun izen-gaiztoak izenpetzea emendik aurrera.

Zeberio'koa ez nazan lez ez daukot besterik esateko.

Ia ba txubeleixuak itxartuta lloko'akaz eta beste askogaz albistari onek aurrera egiten duan.

Parkatu eta urrengoan geiago ta obeto.

POLI'k

Berriz

AGUR aldizkariko arpidedun batzuek gara.

Aldizkari onetatik, nundik nora dan jakin nai dogu, Berriz'ko barriak idazten eban idazlea, izen onegaz agertzen zan: «Karmele».

Gure itauna au da: illa batzuetan ez dogu ikusten ezertxo be Berriz'ko barririk.

Oso pena aundia dogu ez ikustiaz. Ain ederto idazten eban-eta.

Nundik nora ete-da bera?

ARPIDEDUN BATZUEK

Boise


Amar milla dolar batzeko giñan emen aurtengo urte onen azkenerako. Gure «State Department»en babesean «Eziketa Saillak» egin nai dabezan aztarketa batzuek aurrera eroateko: Idaho'n diran eta izan ziran euskalduneri buruz.

Ona baiña, bat-batean, dirutza ori aurtengo udarako bear, ta lortzeko, ta iñork esan al izan dauskula zeriatik, nundik edo nortzukandik, Euzkal-Jai eder bat, iñoiz ez lakoa, izango dogu datorren Bagillaren 2, 3 ta 4'garrenean.

Ez ba'dakigu be nortzuen burutapena izan dan, or dabiz, jo-ta-ke, beste askoren artean, erri, baserri ta artzainitza-lekuetan zear, gure Ron Zabala'ren emaztea; Al Erkiaga; Peli Goirigolzarri ta Jon Atxutegi, zabalkundea egiten eta agergai politak berebil, lan-tresna ta ormetan ezartzen.

Ta ez dira betiko jolasak eta dantzak bakarrik izango, jakintza aldetik be agerpen politak izango doguz egun orreitan, batez be «Western Idaho Fairgrounds» jolastokian. Ta Nibada, Oregon eta Kaliporni edo Utah'tik, ba'litzake baita Mexiko, Ego-ameriketa ta Euskalerri'tik be, etorriko diran euskaldunekin batera, emen adizkide aundi doguzan beste europar errietako jatorrizkoak be deituak izan dira, ta datoz, euren erakusgarriak eskeintzera.

Oraingo onetan, Jainkoa lagun, Ameriketa'ko euskaldunen alkartze beroa lortuko dogu.



SYLVIA'k

Usansolo

GAIXOAREN GORABERAK.—Gure aldizkaria irakurten dozuenok, jakitunean zagoze, zelan Bengoetxea'tar Paskual oeratuta dagoen. Baiña gaixo orren goraberak, ez dozuez ezagutzen. Ta tamalez ez dira pozgarriak izan.

Igaro dan eguenean gure adiskideari ikustaldi bat egitera, klinikara eldu giñanean, ez egoan zorion aundirik Paskual'en inguruan. Len agertu genduan gaixo zitalak, bere erpak luzaturik, Paskual'en bizitza bere atzamar loietan lotuta eukan. Gure adiskidearen asken arnasa entzuten gengozelakoan giñan. Jaungoikoari eskerrak beste aize batzuk dira gaur, urrutizkiñetik deitu dogunean entzun dogun lez.

Ikusteko lez ez dagoala, baiña estutasun aundienak joan dirala. Ia benetan bada, ta idaslantxo au agertzen dan orduko, etxean ikusten dogun, gaixo orreri ganezka eginda.

ABESLARIAN BURUA MAKALIK.—Aspaldian ikusten genduan ez egoala Julen osasuntsu. Gaur ez ta biar bai, bere urdailleko gaixoa zala ta ez zala ainbat makal-aldi ezagutu daitu gure adiskideak. Azken baten, bizi modu ori egokiena ez dala-ta, osagillean eskuetan ipiñi dau bere soiña, makal-aldi orreik, bat batean ebagiteko.

Igaro dan astean joan zan San Sebastian osagillearen klinikara ta an daukagu oeraturik, baiña eztukure aundienak jasorik. Orain arte bere urdailla izan ba'da bere burukomiñ garrantzitsuena, bere alabatxoaren Lenengo-Jaunartzea emendik aurrerakoa.

Bere emazte zintzo dan Pili'ri eskatu bearko dautsagu, maitekor zaindu dagiala, ia egun zoragarri ori eltzen danean, Julen ikusten dogun danon pozez, bai bere alabatxo kutunari ta beste umetxo guztiari bere, bere abesti gozoak eskeintzen.

Ainbat ariñen sendotu Julen abesti barriak ikasi bear doguz-eta egun orretarako.

Ea egun alai ta zoragarri bat igaroten dogun.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Tolosa

KARDABERAZ'I OMENALDI LIBURUA.—Euskera polit, errez eta garbian egindako liburua auxe. Liburutegietan salgai ikusiko dezute, azala kolore biziaz osatua. Gaur euskerak dituan idazlerik onenetakoak aztertzen dituzte KARDABERAZ eleizgizon ta euskal idazlearen bizitz zatiak. Idazle auen artean gure Gotzai jaunaren idazkia ere. Euskaldun etxeetan falta bear ez lukean liburua auxe.

ESKOLEN ARTEKO EUSKAL DANTZALDIA.—Jorrailla'ren 23'gnean ikusterik aal izan genuan. Zizurkil Elbarrena Ikastola'koak, iru talde; Urretxu'ko Lourdes'ko Ama'ren Kolejio'tik bi talde; Beasain'go Lizeo Alkartasuna; Andoain'go Josu'ren Alabe'n; Andoain'go Lasalle'tik bi eta Azpeiti'ko Josu'ren Alabe'na.

Zizurkil'ko taldeak garaille, txapelketa ontan aurrera jarraitzeko. Zorionak, zizurkildar adiskideok!

Zuzentza Enparantza'n ospatu zan jai au guztiz atsegiña izan zan barrabarra ikustera etorri zan jendearentzat.

GURASOAK ESNATZEN BAI OTE?—Bereziartua'tar Iñaki frantzizkotarrai sermoiean aditua. Alegia, gurasoren batzuek, beren aurren eziketari buruz kezkaturik, esku onetan utzi ote duten beren aurtxoen eziketak kezkaturik, itzaldi txoren bat, gai onetaz eman dezala, eskari egin omen diote.

Ea, ba-da, ea begietako kandoa garbitzen joaten geran.

GERNIKA'KO ARITZA.—Urte asko ez dira enparantza berri bat sortu zala Tolosa'n, Gernika'ko Zugaitza'ren Enparantza. Izena bai baiñan gaurdaiño Zugaitzik gabe. Laister landatuko dute bat, irratitik entzun bai-degu Bizkai'ko Aldundia'k, Tolosa'ko Udaletxea'ren eskariari so egiñaz Gernika'koaren kimu berri bat bidaltzea erabaki dula.

Landare au itsasten danean orduan bai izango benetan Gernika'ko Zugaitza'ren Enparantza.

BERRIZ, ABESBATZAK.—Dagoneko, CIT asia da aurten IRUGARREN ABESBATZ LEIAKETA antolatzen. Guztiongandik jakiña izanik beste urteetan lortutako garaitzak, aurten ere abesti ederrik entzuteko gaude. Bitartean euskal abesbatzak gertatze-saiaketetan jardun dezakete. Onetzaz, itzegingo degu geiago urrengo batean.

«AGUR» ASTEROKOA.—Alaxen egin zaigu, eta berri on onek euskaltzale jatorren atsegiña egin du. Euskera jator, garbi eta errez bat egitea bezelakorik ez, aurrera ateratzeko. Beraz jarraitu dezagun bide ontatik, il-eskillak jo eta «faszista» batzuek gerala esan duten txotxoluei jaramonik egin gaberik. Egiten zaizkion «txantajeagatik» ere AGUR' ekoak aurrera egingo degu ea noizbait egunerokora biurtzen degun.

UXOLA

Altzatzu

UME-IKASTOLEN ALDE.—*Atzo, larunbat, gaueko amarretan, pillota-partida ederra egitekoa zan emen, Altzatzu'n, bertako ume-ikastolentzat diru apur bat batzeko; baiñan, azken egunean bertan yakin genduanez, pillotariak, bat edo bat, ez eitekean etorri; ta orregatik atzeratu egin eben yokoaldia.*

Geroago egingo zala; ta orduan barriz, gaztigua paperetan agertuko ebela.

Euskeragaz zer edo zer ikusirik dauan gertakizunen barri, zintzo ta beti emoten dogu; baiña oraingoan uts atara yaku; ta gerorako itxoiten geratu gara. Ea zori obea izaten dogun.

TXIRRINGULARIAK.—*Yoan dan eguenean, illa ren 20'gnean, txirringulariak igaro ziran emendik. Euskalerriaren inguru-bira, nork leenago ta aurrerago egiten dabenen norgeiagoka edo zeinlenagoka.*

Denpora txarra ta petrala agertu ta izan zan. Euria: andi-andia ez; baiña bai naikoa, txirringulariei eragozpen ta kalte egiteko ta ikusleak, be, gutxiago izateko.

Alan da guzti, naiko ikusle giñan, errege-bide ertza, dana, yendez betea egoen-etá.

Ordu erdi ta geiagoko atzerapena ekarri eben.

Eta danak, berrogei bezelatsu, moltzoan yoiazan. Aurrena, lepoan 4 zenbakia eroana, «Ventura Diez», «Werner» taldekoa; baiña au be, besteengandik ur, metro batzuen utsuneagaz bakarrik.

Gero «Urbasa» mendian, otza ta txirgoria; ta lurrean edur lodi-lodia.

Bearrik, Naparroa'ko Aldundiak edurra kentzeko tramankulua bialdu eban; ta olan errege-bidea, bustirik bai, baiña garbi egoan.

«Urbasa»rako aldapa goran, lepoan 13 zenbakia eroanak iges egin eban ta aurrea artu ta danen buru yarri, «Antonio Mendez», «Karpy» taldekoa.

Olantxe yoan ei ziran «Urbasa» zear; ta gero, ez dakit, noz galdu eban 13 dunak, aurrea.

Txirringulari guztiek yoanak ta iñor be ikusten ez zala, iru-lau gizon batean, bide bazterrean, onelan iñoela: «gure gazte denporetako Euskalerriaren inguru-bira, a izaten zan a, txirringularien lasterka!...

Barri-emoilleak, garai areik, barriro be, sor daitezala, opa dautzue danoi biotzez...

YURRE'TAR YULEN A. k.

Arrasate

IKASTOLA.—Gure Ikastola'k aurrera doaz eta lan oso onurakorra ikusten da bai euskera alde eta bai Euskalerri alde. Ba-du bai akats txiki bat edo beste, batez ere ortografia aldetik baiña onek ez-du garrantzi aundirik, moda bat besterik ez da-ta eta moda guztiak bezela bere garaian aizeak eroango du.

Baiña guazen arira. Oraintxe dala gutxi nere etxe inguruan batu ziran bost neskatilla lagun Ikastola ikasleak eurok. Alkarregaz egon ziran une guztietan euskera baiño etzuten erabilli. Auxe da Ikastolaren gurenda aundienetako bat, umeak euskera gordetzea. Eta onen ikasketak ez dira izango orain arte bezela etxean ikasitako motzak; ba oraingo oneik euskeraz irakurri, idatzi eta itz egingo dute eta olan ez dute «alfabetetzeko kanpaiña» bearrik izango. Ara emen neskatilla polit onein izenak: Maria Luisa Ayesa, Begoñita Barrutia, Dorleta Lara, Amaya Muxika eta Idoya Axpe. Oneigaz batera ba-dira beste 400 neska-mutiko era berdiñean! A zerlako iskanbillak atera bear dituen emetik amar urtera gure Euskalerri onetan!

Guzti oneikatik beartuak gagoz geure burua euskalduntzat daukagunok laguntza osoa emoten Ikastolaren alde. Geien, diruz izan bear litzake, ba, Jaungoikoari eskerrak ba-dagoz euren artean diruz arro dabiltzatenak, eta oneik askogaz, eta gutxi al-dogunak gutxikin, al-dan guztia egin bear dugu. Eredutzat or dugu «DANOK» Juventud Deportiva'ko Euskal-Jakintza Alkarteak emon duan dirutza, 50.000 pezeta Ikastola alde. Jarrai dezagun eredu orri beste euskaltzale guztiok. Aurrera!

SARI BAT.—Emengo ULGOR-FAGOR lantegi ezagunak sari bat irabazi du, orretarako Ginebra'n dagon Tximist-tresna Alkartea rena. Europa guzirako, sari berezi bat izan du bai tresna onak egiten ditualako eta bai langillekin daukan artu-emon onurakorragaitik, batez-ere cooperativa osatzeakin.

Lantegi au sortu zutenak erriko seme gazte batzuk izan ziran: ara emen euren abizenak: Ormartxea, Gorroñogoitia, Ortubai, Larrañaga eta Usatorre (G. B.) Lantegi onek errian bertan eta bera inguru dala, lan ederrak egin ditu: Lantegia bera 3.000 langille ingurukin, Langille Errikoi Ontzia (C. L. P.) Langille Ikastetxea, Centro Asistencial, eta abar. Len esandakoen zuzentzaille bezela agertua izan da Arizmendiarrieta'tar Joseba Mirena, Markiñar apaiz langillea. Bejondaizuela danoi eta zorionak Ulgor-Fagor'eko zuzentzailleai.

ERIOTZAK.—Au tamala, nere lantxo guztietan beartua aurkitzen naiz eriotzaren barri emoten. Oraingo ontan onexek dira: Agirre'tar Joseba Andoni, erri ontan ondo ezaguna eta lagun asko zituana, naiz eta amar urte onetan itxasaldean bere bizi-modua egin izan. Pasai'ko portuan itota billatu zuten. G. B. Baita ere jaunak beraganatu du Oxinaga'tar Zorione, bere bizitzako 36 urtegaz. Neure samin agurra bere senar, Jauregi'tar Saturnin eta beste senideei. Andere au sendi euskalzalekoa izan da, bere aita Patirki, Udaletxean ziñegotzia izan zan.

BA-DATOR.—Bai, ba-dator datorren illaren 11'garren eguna Igokunde jaia, gure euskal-mutil-neskatillak Lenengo Jaunartzea izango dutena. Ez-da gutxi umeen gurazo eta umeak daukaten poza eta atsegiña ez-daukate saltzeko. Bai, onako pozak ez-dira izaten ateoen artean. Egun ederra benetan.

UDALAITZ

Ixurtza

Azkenengo bolaran joan jakuzanak:

Karteruenean, Luixa Arria'koa, Jose alkatearen andrea.

Euliene'ko Ugalde'tar Gergori andrea.

Leixartzagoi'ko Madariaga'tar Luix.

Elejabarrieta'tar Satur eta Altzola'tar Bittori andra-gizonak, Alzola etxean, denbora gitxi'ren barruan biak.

Arkotxe'ko Solaguren'dar Pedro eta Benitto, denbora gitxien barruan onek anai biok be.

Otoitz bat euren arimen alde.

F. ARRIBI

BARRIZTU BAI BIRRINDU EZ

Munduak eta Eleizak ba-dabe atondu bearra. Lan orreri oratu yako batez ere Batikano Bigarren Batzar nagusiaren ondoren. Egia da gauza on asko lortu dirala. Baiña geienak ez oraindiño. Eta aurrerantza orretan zur eta ziur ekin bear dautsogula. Eleiza barriztu nairik or eta emen ekintza arrisku aundikoak agertu yakuz. Oraintsu oraindiño katolikua ez dan Europa'ko gizon ospetsu ta jakintsu batek diñoanez batzuek Eleiza barriztu nairik bera birrinduten diarduela. On-ona izango litzake barritze arazoetan erakutsi aundienak beintzat geure begien aurrean eukitea. Geuk geure buruz guztia egin nai ba'dogu, jokera txarra ta galgarria artzeko arriskuan gagozalako. Neure barruan poz andia somatzen dot ikusirik gaztedi ederra esnatu dala. Egi-billa dabiltzala jo ta ke. Ori bear dogu euskaldunak ere; baiña lengo dana ukatu ta utsetik lan egiten astea benetan bide galgarria dala jakin bear da. Gizaldiz-gizaldi gizonak gauza on asko aurkitu ta lortu ditu ta gauza on guzti orreik asieratik ukatuta lanean astea gauza garratza ta asti asko galtzea da. Bideari jarraitu bear dautsogu lengo argi batzuekaz argituta. Orrela asti gitxiagoagaz ariñago ta obetoago arteztuko ditugu bai gizadia baita Eleizea ere.

Barriztu dagiguzan euskerea, mundua ta Eleizea. Baiña birrindu ezelan bez. Ona emen olerkiz gaurko EZTABAIDA:

Iskanbilla sortu da une larri ontan
danak eurena nai ta guda errietan.
Au dala ori dala, biotza da kezkan.
argiak noiz urtengo gizonen artean.

Batzuek lozorroan geldi egon nairik.
Itxi gauza lenean, ez aldakuntzarik!
Lenago dana dala ondoen egiñik
zarrak alperrez diño: dana da lorturik.

Gazteak beste aldetik diñoe lan ta lan
ezin geinkez lo egon egoera ortan.
Mundu oba lortzeko gabiltzan lanean
lena dana da txarra, gagoz illunean.

Gazteak artu dabe bide berezirik
mundu oba egiteko bai dabe gurarik.
Lengo dana ilteko sugarrez beterik
Eurena lortzearren ez dabe esirik.

Bera eleiza-eta, zuzen-lege danak,
ez dago agintzerik, kendu pekatuak.
Azke lizunkeria, azke naikeriak,
gizona da Jainkoa, besteak amesak.

Lenago izan dira gauza onak lurrean
gizon asko azkarrak, gorengo onean.
Gizon zintzo ernaiak, zuzentasunean.
Garbi, egizaleak, langillek onean.

Egia da benetan, mendez mendeetan
gizadian sartu da ixil ta geldikan
zuzentasun bagea, egi-estalpean
dirudun zapaltzaille ainbat bazterretan!

Txartasun asko dala guk ezaguturik,
ondu daigun gizadi lanean ekiñik.
Lengo txarrak artezten ekin jo bizirik
danon artean lana loak artu barik.

Baiña jakin dezagun lenak ezagutzen.
Jainko bat ba-dagola danok autortuten.
Bizi bi dituala gizonak esaten.
Lengo onak artuta ludia obatzen.

Kristo'gaz Euskalerri besterik ez bardin.
Gizarte osotuten zuzentasunakin.
Uzkurtza-bideetan, siñismen berokin,
soin eta gogo gaietan beti Erriakin.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

KIBBUTZ'AK

Urte batzuk igaro arren, Moshe Dyan'ek bere lagun baten illetetan esandako itzak gogoan dauzkagu, ta ez ditugu aztuko. «Etxe bat jasotzeko ta zugaitzak, landatu ta ezartzeko, kañoi ta buru-babesa bear dugun belaun-aldia gera». Ildako bere lagun onek Roy zuan izena, ta kibbutz bateko kide zan, garia ostu naizuten arabeak il zuten.

Au gertatutakoa izanagatik, igaro zan. Eta gaur, israeldarrak asmatutako alkarte ta bizi-era edo Kibbutz ori nolakoa da? Ekaitz baten ondoren laster zutitutzen dan zugaitza al da? Zer zentzu dauka? Ta laterriko eraketaren egoera orokar geienetan, zer eratara kokatzen da? Gazteak oraindik, bereganatzeko ainbat indar ba-al dauka? Leen garai batean, ikusirik Kibbutz'etako burutapen, berdintasun, abertzaletasun eta abar, gazteak kezkatuaz, Kibbutz'etara bildurik, kideko egiten ziran.

Baiña, gaur-egun zer gertatzen da? Israeldar gazteak, Kibbutz'etarako gero ta gogo gutxiago dauka. Ez bait-du lengo lilluratasun ua nabaitzen. Itz batean, gizarteberri ta alkar bizitze arregandik jaso duten ikasketak, gazteen biotzetan len aiña indar ez du.

Oraindik zutik irauten dute, ta ez dira eriotz-zorian aurkitzen. Kibbutza maizterlur guziekikoa danez, kidetasun bat nabari da. Jabetasuna arront eta guziendakoa da, ta lagintza danen artean eratzen dute. Ordaingarri, jatekoa, ostatu ta gizarte-laguntza ematen diote. Ta lo-gela, izaten da bakarrik bakoitzarentzat.

Kibbutzim geienak nekazaritzari uztartuak dira, naiz eta lan-toki «industri» bat edo beste izan. Tzora'n «bizikleta» ta «motuen» lan-toki bat dute. Ta eak diotenez Afikin'goa izan bear du Israel'go «industririk» aundienetakoa, ta irabazpiderik onenetakoa duena.

Israel'en gaur egun 235 Kibbutz dituzte, asi 60'tik eta 2.000 pertsona babesten dituzte.

Kibbutzim'en sorrera Herzl'i sor diete. Au, sionismoaren sortzaillearen zabalkunde ta iragartzetik lortu zuten. Ta ez oraingoa, aspaldi samar zuztartua. Kibbuz'ak Europa'ko gheto'tan jaio ziran. Israeldarrak gizaldietan, askotariko lanari jaukiaz bizi izanak.

Lendabiziko Kibbutza Dagania'koa dugu, 1909'an sortua. Langille gazteak nekazariak izaten ikasi zuten. Arabeak eta Beduinotarrak inguraturik bizi baitziran, ta auek, garia, abere ta abelgorri ostutzen zizkioten. Orregatik, aldezkatu ta maldatzen ikasi bearra izan zuten.

Gaur-egun, Israel'go Kibbutz'etan, 100'dik 3 israeldar bizi dira; au da: 2.841.100 biztanle'tik 84.200. Gutxitzen ari danez, zenbaki onek azaltzen digu, Kibbutz'go gizarte-«sozialismo» era aultzen eta «Krisis» aldian aurkitzen dala. Zergatik? Israel'go gizon ospetsu batek esaten digu: «Egia da Israel'ek daraman abiadari, Kibbutz'ak ez diola jarraitu. Israel'ek, gaur, aberri askatua oiñarritu zanetik, lau bider biztanle geiago dauzka».

«Gazte batzuk ba'dira oraindik, bide au aukeratzen dutenak; baiña geienak beste bidea daramate, beste bizi-era bat autatzen dute».

Israel'ek egia esateko, gaur lengo arbaso zorrotz ta larderiatsu aien bizitzagaz, ez dauka zer ikusi asko. Israel'ek gaur, Amerika txiki ta kementsu baten antz geiago du.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Filolojiazko jardunak VII

ALKARTASUNAREN INDARRA

«Solidaritat Catalana»k erri bati alkartasunak zer nolako indarra ta laguntza eman dezaioken erakutsi zigun. Onen ondoren Prat de la Riva politikari argiak Bartzelona'ko Diputazioan katalan agiriak aztertzeko batzorde berezia irasi zuan. Au izan zan muskilla bezela gerora, 1908 urtean «Institut d'Estudis Catalans» ernetuko zuana. Onek bereala iru Filolojia-ikasle Alemania'ra bidali zituan: Montoliu, Barnels eta Griera apazgaia. Irurak Alcover kanoniguak aukeratuak. Aukeratze artan Fabra'k ez zuan zer ikusirik izan. Bilbo'n bizi bait zan eta aski lan ematen zion bere Gramatika gertutzeak. 1909 inguruan ea bukaturik zeukan, baiña beti obetu naiez, luzapena, luzapenaren atzetik ez zuan era bat amaitu al izan 1912 urte arteraiño. Ea Bilbo utzi ta Bartzelona'runtz abiatzeko zebillen garaiean. Apal izanik adiskideai onua eskatzeko oitura zuan eta iritziz aldatzen zekiana bere asmoaren kontra bederen. Arrokeria ez zan aren griña. Une artan Puig y Caldafach etorri zitzaion ikustaldi bat egiñez batera berri atsegiña adieraztera: alegia, Institut d'Estudis'eko lagunkide izendatua izan zala. Prat de la Riva eta beste katalandar askoren ametsa Katalan Izkuntzaren Akademia sortzea zan. Orretarako Fabra begiz joa zeukaten. Alcover ez zan bazterrean uztekoa ta ezta Novells i Mira Grandia, abar eta abar azken urteotan katalaneraren alde leiatu ziranak. Len aitatutako filolojia-ikasleak ere on izan litezke laguntzailletzat. Fabra'k ezin eskeñi zien laguntzi, oraindik bere «zorioneko» Gramatika... baiñan gerturik zeuzkan «Silabari» Questions eta beste zenbait lan.

Prat aguro jabetu zan Fabra zala Catalunya'k zuan izkuntzalari ta katalanzale jantziena. Onen leiaketak bai «*L'Avenc*» eta bai «*El Poble*» aldizkarietan irakurriak zituan. Naiz zenbait asmo gordin edo berriegiak iruditu arren, Prat'ek ba zuan gizonen balioaren ezaguera eta otsegin zion Fabra'ri zer nolako kondizioetan Bartzelona'ra itzuli zitekean jakiteko.

Alkar aditu zuten, noski eta onela 1911 urteko orrillean Institut d'Estudis osaturik gelditu zan. Lendakari Mosen Alcover; Fabra, Carner, Maragall, Guimera lagunkide ziralarik. Eujenio d'Ors izendatu zuten idazkaritzat. Fabra, dakigunez, oraindik Bilbo'n zegoan eta esan dezakegu ez zala oso pozik gelditu, «Institut» berria eratu zan neurriz... Batik bat Filolojia-batzordea nolatan osatu zuten ez zuan batera gogoko. Eta ala idatzi Alcover'i itzez-itz arrazoiak esango zizkiola aginduz. Uda artako oporraldian Bartzelona'ra txangoa egitekotan bait zan. Eguna iritxi zanean arrera izugarri beroa egin zioten ango aldizkariak, gramatikari gaillen deitu ta gorespen aundienak egiñez. Ez au bakarrik. Rovira i Virjili'k ozenki salatu zuan ea Pompeu Fabra bezelako jakintsu batentzat Catalunya'n ez ote zan bizibiderik... Prat'en bitartez ogibidea Institut zalakoan arkitu zuan eta Alcover'en zuzendaritzapean Iztegi aundiko lanetan... diru-sari truke laguntza eman zezan. Ez zan erreza Mosen Alcover, Grandi eta kidekin bat etortzea. Fabra'k bere iritzi ta asmoak azaltzen zizkien, alperrik geienetan. Oporrak igarotakoan berriro Bilbo'ra itzuli bear izan zuan eta ez kezkarik gabe. Bere asmo ta arauak ontzat artuko al zituzten?... Andik pizka batera Maragall il zan eta ez zuten ordezkorik izendatu. Alcover'ek Alemania'ra bidalitako ikasleren bat sartzea nai zukean, baiñan Prat'ek ez izan gogoko Griera, ta Institut'eko alkia utsik gelditu zan. Ez zan utsunea bete zaspi urte geroago arte, Nicolau d'Olwer 1918'n izendatua izan zalarik.

Eujeni d'Ors XENIUS gizon famatu bezin kaskariña zan, iritzi batetik bestera errez aldatzen orietakoa. Noiz gauza bat esan eta urrena alderantzikoa. Alako batean «*El Progreso*» Lerroux otsaundiko egunkarian Katalan-Akademiaren aurka gaizki esaka idazten asi zan. Eta baita Pompeu Fabra'ren kaltean, onek *H-H* guziak kendu nai izan zitualako. Bai, zion *Xenius* ergelak irri-antzean: «*H-H*» rik gabe idatzi diteke punturik gabe idatzi diteken arabera. Prat'ek ez zien eztabaida oriei ajola geiegi ematen.

Alcover eta Fabra bein eta berriz «*tumpa*» egin arren alkarrekin adiskidetzen ziran amore emanez. Nola nai Fabra'ren arauak aurrera eramateko Institut'eko lagunak eragozpen aundiak jartzen zizkioten.

Ez zan gauza berria, alatsu ibilliak ziran katalanzaleak 1882-1844 urteetan eta orregatik orduan porrot egin zuan Katalan-Izkuntzaren Akademia eratzeko lenengo asmoak.

Orain Fabra'k Bilbo'tik eztabaida ta oztopo guziak aztertzen zituan eta bertatik bertara erasotzea obe zala-ta 1912 urtean Puig i Caldafach onu-emaille zuala Bartzelona'ra bizi izatera joatea erabaki zuan. Au Bilbo'n jakin zanean, bereziki, Industri-Injeniero Eskolan atsekabe aundia izan zan eta arrenak an geldi zedin. Baiñan Fabra'k bere asmoa sendorik artua zuan. Gogozko arloari lotzeko unea etorri zitzaion eta ezin utsegin zezakean, ezin entzungor egin sorterriaren deiari!

Nun lanegin ba-zuan Alcover-Aguilo Iztegi aundiaren gertakizunetan. Universidadean ere Katalan Izkuntza erakusteko lekua opa zioten eta maite zituan eginkizun orientan buru-belarri ta biotzez murgilduko zan beste eskeintza guziak baztertu ta gaindurik.

Fabra'k eragozpenak garaitzeko ezker-esku trebea zizun; eta ba-zekian ibiltzen liskar artean ere. Eta sakabantasuna alkartasun billakatzen.

ANTONIO M.ª LABAYEN

«ORIXE» ta EUSKERA - BATASUNA

Orixe da egia, Zeleta Jaunak, «ORIXE» Jaunaren eritxiz, zelan euskera batasuna egin bear litzaken diñoana.

Asteasu'ko «alkarte gogoangarria» (AGUR, 1972, jorrailla 15) baiño askozaz lenago bizi izan nintzan Donibane Loitzun'en «ORIXE»kin. Soiñez eta gogoz oso bizia zan. «Gurs»ko zelai-esitik (kanpo-konsentrasiñokotit) gau batez iges egin da egoan. Dana zauritu ta urratuta. Alan be, euskera batasuna genbilgun gai. Niri arek orduan agertu eustan aburua Zeleta Jaunak diñoan berbera zan:

A) **Bakoitzak bere euskelkia ondo zaindu ta gorde egiala.**

B) **Iñoiz berak len egin izan eban burubakokeririk, au da, Naparra izanik, Bizkaieraz lan luzeak bizkaiatzerik, geiago berriz berak ez ebala egingo, besteren euskelkiaren jatortasuna, gatza ta berakatza nekez jarizten direalako. Zaindu, gorde ta ikasi bedi, iñoan, bakoitzak bere euskelkia, onela iñoiz Euskeldunak euren Agintari jatorrak izango ba'leukeez, Agintaritza orrek bere Lege ta aginduak euskeraz emongo leukez, eta beronek erabilli leukiken euskera euskera-batasunaren eredu, izpillu, piztugarri ta eraginkor izango litzake.**

D) **Ez bedi iñok erabilli, iñoan gaiñera, itz arrotz, ta erbestetarrik euskerak etxean daukozan bitartean. Iñoiz jasoko ba'litzake beste itzkuntza arrotzetara jo bearra euskereak ez daukolako orretarako itz egokirik edo itz barriak sortzeko, erro ta sustrai tayukorik, orduan auzora itz billa joatea izango litzake, iñoan, norbait dirurik ez daukonean auzora diru billa joatea bezela, baiña beti baldintza onegaz: diru jabe egiten danean barriz dirua biurtzeko erabagiz, eskerrak emonaz egin dauskun mesedeagaitik. Iñoiz ez gara izan iñoren lepotik bizitekoak.**

Berak esaten eban beste gauza bat be gogora ekartekoa dala deritxat egun onetan. Ikusirik itzkuntza Prantzesa irakurtea oso gatxa zala, ainbeste iski (letra) alperriko eukazala, esaterako PAU idatzi ta PO irakurri, Lourdes idatzi ta LURT irakurri eta abar eta abar... berak esaten eban: Prantzia'ko iraulketeak ainbeste uts, akatz eta bidebageker zuzendu zituan: eta idazkera, zentzubako au, zergaitik ez ete eban arteztu? Zer esango ete eban gaur eguneko ainbeste H ots bako ezagutu izan ba'liu?

JOSE ANTONIO OAR-ARTETA

AGUR

III URTEA
39 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - ORRILLA - 20

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

GUDA-LEGEAK

«Gizona gizonarentzat, otso» esaten eben antxiñako Erroma'tarrak. Eta egunoro geure begiak egiztatuten dabe esakun zar ori. Otsokeri oneik, batez be, guda-aldietan agertzen jakuz. Gudea bera otsokeri ikaragarri bat da, eta gudetan jazoten diranak otso-oiturak txiki izten dabez.

Baiña ez dira bardiñak guda guztiak. Gizon basatien gudak eta ezita dagoan gizonarenak ez leukea bardiñak izan bear. Alegin guztiak egin arren gizonak ez dau lortu, gaur arte beintzat, gudak kentzea. Orregaitik, gudarako lege batzuk ipiñi ditu. Lege orreik beteten ez dituenak, benetan basatiak eta ezibako gizonak izango dira.

Ba dira, ezin ukatu, gure zentzun onak agertzen dauskuzan lege batzuk, berezko legeak. Eta onei iñongo gizonek iñoz utsik ezin emon izango dautse. Esaterako: gudarako bearrezkoa ez dan kalterik ez egin, izkillu bako erriak ez apurtu...; gudalarien artean alkarren arteko zintzotasunaren aurka ez ekin, ikurrin zuriak bear ez dan orduan ez erabilli, arerioen antzeko soiñekoak ez jantzi, Gurutze Gorri'ren ezaugarriak bidezko ez dan orduetan ez erabilli...; gizontasunez jokatu: atxillotuak ez zigortu...

Orreinlako beste lege asko barruak eskatzen dauskuzanak dira. Baiña euretariko asko eta gizartean onartutako beste lege batzuk, laterri-arteko batzarretan idatziak izan dira. Batez be batzar oneixeek ziran ospetsuak: Ginebra'n 1864'an bata ta 1906'an bestea eta 1929'an irugarrena. La Haya'n beste batzar ospetsu bi izan ziran: 1899'an eta 1907'an. Batzar guzti oneitatik, laburpen bat egiñaz, lege oneixek atera geinkez:

Zaurituak: **«Gurutze-gorri» bazkunea laterrietan sortuez joian bitartean, erabagi oneixek artu ziran Ginebra'ko bazarretan: zaurituak eta gaizoak, lagunak naiz arerioak izan, gaizo-etxeetara eroan eta osatu egin bear dira. Guda-alderdi biak orretan diarduen gizonai itzaltasuna izango dautse. Lan goragarri ori egiten diarduenak ezin ledikez atxillotu.**


Illak: **Guda-zelaiaren jabe geratzen danak illak batu egin bear ditu eurai ezelako iraiñik egin barik, euren ondasunak ostu barik. Gero, itzaltasunez eurai lurra emon eta, nortzuk izan diran jakiteko alegindu ondoren, euren jakingarriak alderdi bietako agintariai bialdu. Ildakoen eukiak euren etxekoai bialdu bear jakez.**

Atxillotuak: **Lenago irabazleen morroi izaten ziran eta sarritan il egiten ebezan. Gaur atxillotuak ezin artu leikez morroi lez, ez eta epaipenez zigortu be. Eurak askatasun barik izateko zio bakarra, arerioai indarrak kentzea da. Gizon lez artu bear dira ba: euren eukiak, izkilluak izan ezik, ez kendu; eurai lana emotea ondo dago, baiña ez iñoz euren arerioen aldez legezko lanak; gudarako diran lanak be ez; lan orreik ordaindu egin bear dira, norberaren gudariak egiñak ba'leitekez lez; atxillotuak norberaren gudariak lez janaritu bear dira, gudari-buru izandako atxillotuai, norberarenai ordaintzen jaken lako saria ordaindu bear jake; euren artekoakaz alkarren barriak izateko bideak zabaldu bear jakez; euren Erriaren aurka gudea egitera iñoz ez dira beartuko...**

Batzar oneik, sakontasunez, beste gai bat be ba darabille: ordea emotea edo «represalia». Eta orretarako be baldintzak dakarrez: neurriz izan daitela; berezko eskubideen aurkakoak ez daitezela izan. Ezin leitekez ba orde-emote batzuk egin: atxillotuak zigortu, zauritu edo euren gorputzak moztu; errubakoak il; eta au errubako asko ilteko bide dalako, gudarako gertakizun berezirik ez dauken erriak eta uriak ezin ledikez bonbakatu edo beste era batzuetara ondatu.

Lege oneik, eta antzekoak, guztiok onartzen doguz. Basatien legeen alde ez gagoz, baiña noizean bein bete barik geratu dirala ikusteak benetako samintasuna damosku.

AGUR



USUE, Olite ta Zangotza'ren erdian.
Oporraldian ezagutu zure erria!

EPULON ETA LAZARO

Izen bi oneik, beti, deikorrak izan jataz. Zerbait indartsu dana dabe euren izakeran. Alan ez ba'litz, ez nindukee ain gogor zirikatuko. Gizadiko arazo aundi ta sakonenetako bat irudiki ontan aztertu ta epaitzen da.

Gizonak gizonkiro ikusten ditu gizarteko gauzak ta onen joka-bideak. Gizon zuzenak, zuzentasunez ikusi ta konpondu nai ditu lurra ta emengo arazoak; gizon gaiztoak norberekerizko gaiztakeriz eratu nai ditu, gizartearen onari jaramon egiteke. Ta gizonaren okerkeria dala-ta, geuk sortzen dogun burruka ontan saiatzen gara.

Kristo'k be gizonari on egitera etorri zanez, arazo oni, barru barrutik, oratu eutson. Emen dagoz ba gizonen eretxiak eta Kristo'rena. Bitzuon artean ez-bardintasun aundia dago; gizonek gizoneraz ikusten ditue lurreko arazoak ta Kristo'k gizon ta Jainkoeraz.

Gizonen artetik batzuk batu ta batu dabiltzaz. Onein asmoa norbera aberastutea, albait ondoen bizi izateko. Inguruko lagunak ta onen ezbearrak ez dautsee ezer esaten. Norbere eretziz, dirukeriagaz munduko erera aundi egin ta kasta polit bat sortuagaz, ingurukoak menperatu ta norbere erara aren bizitzak konpondu. Au zan, noski, Epulon'en kontua beste batzuena bezela.

Onek izan bear ete dau gizadiaren bizikerea, izatez era batekoak diranak, era bitan zatituta aundi ta txiki, batzuk barrez ta geientzuenak negarrez? Egokia danik, ez dirudi iñundik iñora. Ta alan da guzti be, gizonen griñak taju orretara eroan dabe gizadiaren bizia.

Eurak artu dituen talentu-argiak era onetan darabillez. Bideak galduta, egia baztertuta, artu dan argiari iruzur eginda; baiña ori, olan danik, ikusi nai ezta.

Au olan dala esateko eskubiderik ba'ete dau iñungo gizonek? Gizon zuzenak, egiz, era orretan itz egin legike, gizonaren adimen argia argi egiteko bai da. Baiña gure eretxien goitik dago beste eretxi uts ezin bat. Kristo'k irudi bidez argitu ta epaitu eban gizarteko arazo min eta sakon au.

Kristo'rentzat bizitza bat dago, iñoz, amaituko ez dana; aldatu egingo da ta era barrian, betiraun guztian jarraituko dau. Bizia era onetan ikusirik, Kristo'k epaitu zitun aberatsa ta beartsua. Lenengo, lagun guztiak artu ditue argi ta maitasunaren talentuak erriaren alde jardun ta on egiteko, baiña gizonak norberekeriz, bideak okertu zituen.

Kristo gaurko teknika bidez etzan ibilli gizadiari irakasten: «Zuen ez-jakintasuna dala-ta, irudi bidez agertuko dautzuet irakatsia». Ta ona emen, Epulon eta Lazaro gaurko gizarteatrentzat ere, irudi bizi-biziak. Larregi daukenak eta ezer ez daukenak dagoz gizadian.

Gosez dagonari begiratu ta orduantxe, artu bear da erabagia bizitza orren aldez. Gizonek gizon bezela artzen ditue erabagiak eta bai batzuk eta bai besteak Kristo'rik ez dabe nai auzi orretan. Ta siñistedunak lez siñistegabeak egi urriz dabiltzaz sarritan, buru-min ain aundi onek argitzen. Ta guztietan ostera aginpide-zaletasuna, argi ikusten da.

Kristo ostera, gizonak nai ez ebalarik, oso-osoan sartu zan auzi onetan. Bizitzaren Jaubea bera izanik, nork dauko berak baiño eskubide ziur ta bereziagorik? Epulon'i bizitza ontako diruzalekeri ta jokabideagaitik, betiko miseria emon eutson. Ta irudi onen bidez aundikeriarentzat zer dagon adierazoten emon dausku.

Gizonak, emen, ta onako dabiltzaz, burrukan, gizarte auzia konpondu nairik. Kristo'rentzat biziak ez dauka amairik ta bere zuzenzaletasunak, sari ala zigor, askoz sakonagoak emoten ditu. Bestelan Epulon'i galdetu, Kristo'k maitasun geiago nai dau bardintasun obean.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

ISARAELDAR GAZTEDIA

—YAIR DORI—

«Israel Magazine» illerokoa artzen dogu AGUR' aren truk. Joan dan Otsailleko zenbakian, Yair Dori gazte bulartsuaren aipamena dakar. Nor da baiña Yair Dori ori?

Arjentina'n jaioa dogu, 24 urtedun judutar gazte au. Umetako bere izena Victor Botvinovsky izan eban, eta bere aita (orain illa) Arjentina'ko judutar Bankoan zuzendaria izan zan.

Mutil au, gazte-gaztetarik abertzale zintzoa dogu; Israel'en askatasun osoa da bere elburu bakarra, ta errizaletasun orrek betetzen du bere bizitza. Orrela Arjentina'n eban bizitza gozoa, ondasun guztien jabe izan arren, itzi ta Israel'go kibutz batera etorri zan gazte jator ori; or bere lenengo izena, beste judutar askoren antzera, aldatu ta gaurko bere errikoi Yair Dori artu du.




Gudari sasoian dago ta egaz-jauslari edo «parachutista» saillean sartu eben, baiña, zori-txarrez, ez du aldi aundirik egiten. Beste amalau lagunekin batera, zelata baten oratua izan zan, eta bera bakarrik geratu, amalau lagun antxe bertan il zirala.

Aijitoarren eritegi batera eroan eben ta Sami osagille gazteari esker, bizirik iraun du, ez baiña bere gorputzak osorik: ezkerreko begia ta eskumako eskua galdu ditu. Aijitoarrak, Israel'go eskutuko gauzak jakin nai, baiña alperrikoak dira Yair'entzat makillada ta zigorrak. Ez du ezertxo be esan eta bere abertzaletasunaren kemenak lagundu dautso aldi txar guzti orreik gaintzen. Amaikagarren illean, «Cruz Roja» dalako orren bitartez, beste aijitotar zauritu batzuen truk, etxeratxea lortu eban, gure gazte sendoak.

«Zer dala-ta dakarzue, mutil orren bizitzea, zuen aldizkadira?», itaunduko du norbaitek. Alde batetik, ez dot ukatuko, judutarren alde dodan asmo onagaitik; beste alde batetik, gazte onen bizitzea erakusgarria... eredugarria dogulako.

Judutar gazteen elburu bakarra, Israel da. Lenengo oinkadea, aberri bat judutar guztientzat lortzea izan zan; aberri ori jasotzea, sendotzea ta zaintzea da urrengoa. Israeldar gazteak ez daukee txantxetan ibiltzeko asti larregirik; geienak, lanean eta ikasketetan erabatera diardue, ta orrez gaiñera, noizik bein, aldiz-aldi, gudara deituak izaten dira. Sopuz mendiko judutar Ikastetxe Nagusiak, amazortzi milla ikasle ditu. Lauren bat erbestekoak osotzen dabe baiña.



Mundu guztitik joaten dira ara, judutar jakintsuen irakaskintzarekin jabetzera. Ez da arritzekoa: lenago basamortua zan lurraldea, gaur baratz emonkor batera biurtu dabe, jakituriari, errizaletasunari, diruari ta lanari esker.

Israeldar gazteak askatasuneruntz abiatu ziran ezbardintasun guztiak azturik; iritziak alde batera itzita. Bear izan zanean alkartu ziran... eta gaur erdi lortu dabe euren naia: diruaren indarra gizartetasunaren menpean jarri dabe; egizko, benetako sozialismorik iñun dagonik ez dogu uste, baiña antzik aundiena israeldarrenari artzen dautsagu, askatasunezko sozialismo orri.

Ez dabe baiña israeldarrak, lortu baiño len «opil-gozorik» banandu. Zorionekoak eurok lako erriak.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

SASKI NASKI

Idazten diran gauza askori jaramonik ez egitea obea ote litzaken iruditzen zait askotan. Baiña «gauza» oietako batzuek irakurrita ezin ixilik egon gaitezkela ere egia da.

Orixe gertatu zait, aldizkari baten idazlan batean au irakurrita: «Gure aurrekoak guri utzi ez zeukutena behintzat, geure ondorengoei eginik utzi behar zieagu guk oraingoan».

«Noren» auaurrekoak ez zuten ezer utzi? «Xabier»en aurrekoak? Baditeke ori, eta beste «Xabier» batzuenak izatea ere bai. Baiña Jainkoa'ri esker, **«nere»** aurrekoak, eta euzkotar askon aurrekoak, lan aundia egin eta utzi ziguten.

Ausarta, auen idatziak eta esanak irakurri eta entzunda auxe ikusten degu: euskal arazoan, jakintza, euzkotasun eta beste gai guzitan, oraingo «gazteak» (ez det uste GAZTE oietako guziak ain GAZTE diranik), oraingo «gazte» oiek, diot, egin arte iñork ez dula ezer egin.

Orain aiña ez omen da iñoiz idatzi; orain bezin gaizki ez beiñepein! Len, idazten zutenak, IDAZLEAK ziran; EUSKAL IDAZLEAK! Orain nornaik idatzi dezake: H asko sartu, **noizean bein euskeraz** itz bat edo beste jarri... eta orra or idazle iaioa sortu!

Ontan bezela beste gai guzietan. Eztet uste iñon, emen gertatzen dana gertatu ditekenik. Euskal irakasle izateko, bi edo iru illebetean zerbait ikasten jardun eta bereala orratx! irakasle berri bat.

Besteak, urteak bear izan ditugu, zerbait irakasten asteko eta beti ikasten jarraitu gaiñera. Baiña «Oraingoak» baita zera ere! Jakintsu jaio baitira!

Iñongo «Academitan» sartzeko, lenengo, ikaskintza aundiak egin bear dira; ikasi ondoren, ikaskintza ondo egiña dutela eta beren jakinduria agertu. Emen, **euskera ondo** jakiterik ere ez da bear itxuraz.

Jakiña da, ludi guzian gauzak oso nastuta dirala, baiña nasketa au, gure artean, ikaragarria dala ezin ukatu; lengo aria galdu egin det eta beste zerbait esan gabe ez nuke bukatu nai.

Gure aurrekoak egin zuten lana, aundia dala esan det. Ba-dakigu noski, 1936'gn urtetik aurrera, gauzak geldi egon zirala; eta guziok dakigu zergatik. Baiña ez ala ere askok uste duten bezin geldi. Eta 1936 arte egin zan lana zer? Ori, «euskerantoarrak» ez dute aitatu ere egiten; zergatik? Len, «ezer egin ez zuten» aien idatzi batzuek ba-ditut nik, eta noizean bein zatiak emen jarriko ditut, **guziak** «GURE AURREKOAK» egindakoa pixka bat bederik ezagutu dezaten. BERAK oñarriak jarriak utzi zizkigutela ederki agertzen duten lanak. (Jakiña da, garaiartako gauza batzuk ezin ditezke orain argitaratu). Eztet uste gure erria eta gure izkera gaizkatu bear ba'ditugu, AIEK egin zuten lana, baztertu ta zapaldu bear degunik; aien irakaspenak artu eta aurrera ekin baizik.

* * *

Nere azkeneko idazlenean, eguneroko baten esandako zerbait aitatzen nun, baiña jarraitu dezadan, beste pixka bat gai ontaz.

Lenengo zatian ziona, alde batera utziko det, oraingo egoeran, gure izkuntzarentzat «oficialidad» eskatzea zion zatia alegia. Ontaz ez bai dezaket bear dedanik edo nai nukenik idatzi.

Goazen ba aurrera. Geroxeago **lengo** «Euskaltzaindia» aitatzen du; baiña bai gauza arrigarria! Lengo «Euskaltzaindia»z, berari ondo datorkionean besterik ez da oroitzen. «Euskaltzaindi» onek berak euskal idazkera (ortografia) ederki moldatua, eta berak egiñak zitun lanak ezertarako aintzakotzat artu gabe. Ta Euskaltzaindia EUSKALTZAINDI zanean erabakitako guzia alde batera utzita.

Baiña ausardia bai, ala ere **ondo datorkienean** EUSKALTZAINDIA aitatzeko.

* * *

«Agur» gure asterokoan «Euskaltzaindikoak» dion zerrenda ikusi dedanean, bertako izen asko ikusita arrituta gelditu naiz; bai-baitakit esandako oiek ez datozela bat «Euskaltzaindia» egiten ari danarekin.

Laster arazo au argituko dan itxaropena det. Nasketa ikaragarria sortu bai diteke askontzat (len ditugunez gain) Euskaltzaindia'ren jokabideak gaitzesten ari diranak berak euskaltzain dirala ikusteak. Naiz «osokoak» «oorezkoak» edo «laguntzailleak» izan.

Ea ba, lenbait-len argitu arazo au.

AMALE'K

EUSKERA DALA-TA

Zestua'n aur geienak, kristau-ikasbidea gazteleraz ikasten dute. Burugabekeri onen errudun nor da? Zergaitik ez dute gure izkuntzan ikasten? Jainkoak gaztelera besterik ez ote du ulertzen? Jokabide au, ez al da «jenozidio» ikaragarri bat? Esango al dut errurik geiena nork duan?

Neretzat, lendabizi, elizak, gurasoak eta estaduak. Erriari, Kristau-ikas-bidea bere izkuntzan irakatsi bear zaio. Kristau-irakaskintzari buruz, goian aipatu dugun arazoaz, erabaki-nagusia artu bear duan erakundea, Eliza da! Lendabiziko eskubidea beraz, elizari datxakio. Ontan Estadua, Elizaren esanetara egon bear luke, ta Elizak, bere nortasuna ta bearkizuna agertuaz, ikastetxetan kristau-ikasbidea euskeraz ikasteko, azkatasuna lortu bear du.

Eta gurasoak?—*Gurasoak dugu leen, aurrak azteko eskubide nagusiena. Gurasoak maiz zabarrak izaten gera, ikastetxera aurrak biali, ta iruditzen zaigu, dana egiña dagola, gure bearkizuna bete dugula. Ta bitartean gure errian zer gertatzen ari dan, ez gera batere ajolatzen. Euskera, gero ta atzerago dijoa, karriketan gaztelera besterik ez da entzuten. Usten dugu ikastola ba-dugula, ta onek, euskera salbatuko duala. Itxu gaude! Ikastolak bakarrik, euskera ez duala salbatuko ikusteko, begiak ireki besterik ez dago.*

Euskera izkuntza, il-zorian aurkitzen da. Pentsa oi izan dugu, gure izkuntzak baserrietarako bakarrik balio duala. Baiña, euskerak bere barnean, esan eziñezko aberastasunak ditu. Euskera, ludi guziko izkuntzarik aberatsenetako bat izatera iristeko izkuntza da.

Gurasoak, arduratsu ta benetan artu bear dugun arazoa da. Ez da erraza, ez! baiña alegin guziak egin bear ditugu. Ikastetxe guzietan euskera sartzen, saiatu bear dugu, guraso guzien bearkizuna baitda. Ta ikastetxeko irakasleak, eta batez ere erlijiosoak, gurasoen egin bear oni, lagundu bearrean aurkitzen dira.

Ez da naikoa, lege-berria dala-ta, Estaduak irakaskintzarako artu duan bidea ikusirik, gurasozi orri batzuk zabaldutzea, une larri ontan, zer jokabide artu bear dugun erakutziaz. Esnatu ta alkartu! eskatzen digute, ta au, egiten ez ba'dugu, 6.245 ikastetxe, beren 62.000 irakasle ta 1.638.224 ikaslerekin ankaz gora dijoaztela. Gure seme-alaben eziketaren kalterako danez, danok esnatu ta alkartu gaitezela, dear egiten digute. Au dana oso ongi dago, baiña jakintzari ta izkuntzari buruz, Jon XXIII dionaz, ez gaitezela aztu. «Argi ta garbi, aal dan argien eta garbien esan bear da erri ttiki oiek zapaltzeko egiten diran lanak, izan diteken obenik larriena ta lanik makurrena dala».

Esnatu ta alkartu gaitezen, bai! Ta nork bere izkuntza erabilli dezagun, etxean eta etxetik at; elizan, biltzarretan, agintarekiko ar-emanetan, eta batez ere, ikastoletan eta beste ikastetxe guzietan.

Erriaren dear larria entzun dezagun, eta zor dioguna emanaz, benetako kristau euskaldunak izango gera.

OSARTZU

Pozak eta kezkak

Sail onetarako, Piper-Ziri zirikalariaren laguneri auxe eskatzen zaye beti: «Egi utsa ta egia beti bear degu jaso sail onetan agertuko ba'da». Ta orretan kokaturik gure 35'gn zenbakian auxe esan genun:

«Aipamenak.—Barriro be, gure ziria eztitsua. Lengoan jakin dogu, Lizeo Santo Tomas'eko irakasle taldeak artu dauan erabakian: Ikasleeri, amairu urterarte, gipuzkoera irakastea. Ortografia gora-bera, ori da zentzunez jokatzea, umeen psikolojiarentzat eta euskerearentzat ongarria. Bestelakorik ikusten dogu ikastola batzuetan, ez dogu ulertzen baiña zein asmoz dan».

Ta ara, emen berago agertzen degunez, ez omen da jokatze ori ikastola orretan jazo. Ba-litzake, gure izparlariak, itz-aldi luzea izan genunez, esan guzia gure zirriborrotan nastutzea. Orrela ba'litz berak emango digu eta emengo dizute garbitasuna, eta benetako ateari uts egin ba'diogu, zein izan dan bestea azaldu. Ta, ezer geyago gabe, ona emen jaso degun eskutitzaren itzak:

«AGUR» aldizkarian, 'Pozak eta kezkak'» saillean, jorraillaren 22-an agertu den alean, onako au irakurri dugu: Lengoan jakin dogu, Lizeo Santo Tomas'eko irakasle taldeak artu dauan erabakian: Ikasleeri amairu urterarte, gipuzkoera irakastea.

Berri ori, ez gutxi ez asko, ez da egia. Guzia gezurra da. Irakasle talde orrek ez du orrelako erabakirik artu, eta are gutxiago azken itza berea duen zuzendaritzak.

Beraz, otoi, zuzendu oker ori. Zuen serbitzari,

Mari Karmen Alzueta, zuzendaria»

Makiñaz idatzia, eskuz izenpetua ta 72-4-27'gaz noizkotua.

* * *

Igaz, Eibar'ko aurren euskal jairako agirietan, utsune aundi bat agiri zan: 9'retan Untzaga'n urten kale-jiran Urkuzu'ra, ta amabietan barriz Urkuzu'tik Untzaga'ra. Bateron bati galdetu neutzan zer egingo ete-eben ia ordu bi luze orreitan eta auxe erantzun eustan: «Ba-kik ba, umeak «derrepente» euren estu aldiak izaten jitxuek-eta, pentzaik zelako Urkuzu aldia ipiñiko daben, danak batera asten baitxuk». Baiña, jaietako arduradun batek beste au esan eustan: «Aztu egin jakuk ipintzea. Mezatara joyazak».

Aurten be, Donosti'ko eguneroko batek dakarrenez, uts berbera dator, ordu terdi inguruko ume galtzea. Aztu, ezta? Ez mutillak; lotsatu egiten dituk, edo bestela, guk ziñestunok baiño be bildur aundiagoa Jaungoikoari, ta izentatzen be bildurtu... esku onetan dabixak gure landarok!

* * *

Kezkatsu dabiltz batzu-batzuk —ta gu be bai— euskaldunok zatikatu egin garala ikusita. Ondo ta benetan batuak giñan orain amar urte inguru, ta erakutsi be egiten zan. Arrezkero, batzuk batzuk zatitu gaitue, ta ez guk.

PIPER-ZIRI

AGUR

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

BIAR ESANGO

Zein izango ete da euskeraren geroa? Zein gure izkuntzaren etorkizuna?

Nortzuek arrazoi? Nortzuk errudun? Zein egia?

Gaur nork iraun? Biar nortzuk garaitsu?

Galderak ugari, erantzunak meatz eta illun. Egoera bat euskerarengan; galderak egoera onetzaz; erantzunak egoera berorrek.

Azterketa llaburra bear da galdetzeko; Astinketa sakona ta neketsua, zertxobait illun, erantzuteko.

Ointxe artu dot ene lagun dan mutil azkar baten eskutitza, eta au diñaust alde baten:

«Azken eskutitzan idazten idan euskereak, dagoen egoera latzetik atarateko, laguntza sendo bat bear zula, eta guk, gazte geranok, gure eskuetan degula gure izkuntzaren etorkizuna. Bai, irekin natok, baiña pesimista nauk zerbait aurreratuko degun ontaz. Ezin diat siñestu kapaz izango gerazenik urrats bat emateko gure artean borrokan ari gabe. Alkarturik egon ordez, sakabanaturik gaudek, eta gauzak geio okertzeko gure lepo gaiñean dizkigutek ankak».

Euskera errikoia bear dogula ondo derist, noski. Euskeraren batasuna derrigorrezkoa dala nork uka leike?

Ekaitz illuna, aspertu gozuz,
naretu itxas bazterra!
Trumoi negarra ixildu noizbait,
ager uztargi ederra.
Mendi bateko koba bezela
nik dakust illun zerua.
Gaur atarako ete da nonbait
eguzki argi beroa?
Ekaitza arren urten kalera,
euskaldun gizon azkarra,
negu oneri egin ostopo
guztiok, gazte naiz zarra.

EROSKI

GAZTE

GAZTEEN JAKITURIA

Kepa'k: «*How, Andoni*».

Andoni'k: *Zer dek how ori? Nik orain arte kaixo esaten nayuan beti.*

Kepa'k: *Atzeratuta bizi al aiz? Orain itz in ternazionalak erabilli bear dituk.*

Andoni'k: *Arrazoia daukak, lenen lenengoa unibersala izatea dok...*

(Miren, Andoni'ren laguna, kaletik zear doa).

Andonik: *How, Miren.*

Miren'ek: *Chao, Andoni.*

Kepa'k : *Unibersidadean, zelan zabizie?*

Andoni'k: *Marx gora ta Marx bera!*

Kepa'k : *Benetan zoragarria Marx ori...*

Andoni'k: *Bai mutil. Ez yautsot irakurri, baiña ona izan bear dek. Bai noski!*

Kepa'k : *Eta ikasketak, zelan?*

Andoni'k: *Zein ikasketak? Olako Unibersidaderik ez diagu nai. Dan-dana dagok txarto. Orregaitik huelgan eta protestan gabizak beti.*

Kepa'k : *Baiña i oso argia aiz, eta batez bere ikastun purrukatua, eztok?*

Andoni'k: *Bai zera! Irailla'rako lau edo bost gai utziko yuadaz, ziur.*

Kepa'k : *Baiña alan ta guztiz, arrazoia dozue. Jarrai aurrera!*

Andoni'k: *Eta, zer yiñok ire ezkongaiak?*

Kepa'k : *Ondo dagok, baiña ikusi zak!, ortik dijoan ori bai dagoala ona benetan.*

Andoni'k: *Aspertuta nagok, Kepa. Ez al aiz konturatu?... tirano batzuen artean bizi gaituk!*

Kepa'k : *Ori, ori!*

Andoni'k: *Gu proletarioak gaituk, eta proletarioen alde gabizak.*

Kepa'k : *Ori, ori!*

Andoni'k: *Nire gurasoak bai dirala burgesak. Zer uste yuek, olan konponduko dala gaurko mundua ala?*

Kepa'k : *Nireak be...*

Andoni'k: *Aste guztirako, bi milla laurleko emoten yaustezak. Baiña ori zer dok?*

Kepa'k . *Bai, gizon. Ez yauskuek ulertzen.*

Andoni'k: *Baiña ni enok ixilduko juztizi zalea nazan ezkero.*

Kepa'k : *Gogor, gogor!*

Andoni'k: *Bai; erabagi bat artu yuat: nire sendian nai dotana egitea.*

Kepa'k : *Baiña gurasoak be...*

Andoni'k: *Ze guraso ta ze demontre! Esan deiela nai dabena. Gora gure azkatasuna!*

Kepa'k : *Gora, gora!*

Andoni'k: *Gure gizartea guztiz ustelduta yagok.*

Kepa'k : *Egia esan dek, Andoni. Oneraiño elduten yakuk bere kiratsa!*

Andoni'k: *Baiña gu ez gagozak gizarteari lotuta.*

Kepa'k : *Ez orixe!*

Andoni'k: *Ba gaur, iru urtetan lenengoz. Meza'ra joan nok.*

Kepa'k : *Zer ba?*

Andoni'k: *Lagunen aurrean ondo gelditu bearrean...*

Kepa'k : *Eliza pobrea danontzat obea.*

Andoni'k: *Bai jauna; Kristo'k esan eban lez: «Birrindu egizuez ezberdintasun guztiak»!*

Kepa'k : *Ori, ori!*

Andoni'k: *Biar zinera noak. Esan yausten lez, pelikula on bat dok. Sozial eta kultura gaiak ikutzen yozak. Zer deritxak?*

Kepa'k : *Utikan! Etorri adi zine ontara. Emoten ari diran pelikula, orlegi utsa dok.*

Andoni'k: *Bai e? Orlegi zalea nok ba...*

Kepa'k : *Orduan ba, ockey.*

Andoni'k: *Ockey... ez; eskerrik asko. Nik Koka edaten yuat.*

Kepa'k : *Ez mutil! Ockey'k, konforme egotea esan nai yok. Biar emen bilduko gaituk lau ta erdietan.*

Andoni'k: *Orduan ba, ockey!*

Kepa'k : *Good-bye, Andoni!*

Andoni'k: *Arrivedercci, Kepa!*

Eta andik agertzen dan agure zar batek: «Andoni, Kepa, agur, laztanak!»

EZKAURIATZA'TAR XABIER

II-ASKATASUN ESKUBIDEA

3.—ERDI BIDEA: BAKOIZTASUNEZKO BIDEA

Gizona apurka egiten da, Jaioeran bere gorputza oso txikia da (bi, iru edo lau kl). Urteak bear ditu aundi egiteko. Ikasketakin bardin jazoten da. Gertagizunak antzekoak ainbat zailletan: Ezin da bat osagille edo irakasle egun batetik bestera egin, ezta urte baten ere. Urteak eta urteak bear dira orretarako.

Kanpotik ori, baiña barrutik zer? Bardin jazoten da? itaunduko dabe askok eta askok. Eta egia, beste orrenbeste jazoten dala da eratzuna: gizona ez da azurrak eta aragia bakarrik, edo gizarte makiña aundi bateko tresna txiki bat. Gizona apurka egiten dan etxegintza bat lez da. Apurkako soiñ eta gogo bat. Bizian zear milla aukera izango ditu. Aukera orrek artzen ikasi bearko dau lenengo; batzuk txarrak, eta beste batzuk onak izango dira aukera orrek. Zein artzen dauan, urtengo dau gizonak.

Bakoitzak bere gizontasuna aunditu ta ontzeko oiñarri batetik asi bearko dogu' eta gizonaren oiñarria bere gogoan dago. Gizona ez da beste izakiak lakoa; bere gogoagaitik beste izakien gañerik dago. Esate baterako, txakurra aundizat dogu, baiña txakurrak ez dau gogorik, ez dau pentsatzen, eta gizonak bai. Ori da gure aunditasuna: On bat egin gura dogunean, dakigula egiten dogu, jabetasunagaz, egia nai ba' dogu esan, egia diñogu, baiña nai dogulako, gure izateak berak ori eskatzen dauskulako.

Gizonak zati bi ditu ta biekin bat egiten dau: Soiña, ustelkorra, ta gogoa, ikusten ez dana, nai-ta aditzekoa. (Bat edo bestek, nik gogoa ainbat aldiz aitatzen dodan lez, arimagaz, edo siñestunak diñoen gogoa dala usteko dabe. Baiña ez, nik ainbat aitatzen dodan itz orren esan naia, emen beintzat, beste gauza bat da: naia, borondatea, pentsaera t'abar). Biak bat dira. Biak ondo eroateko, beste aldetik, lur ondasun batzuk bear ditu, bizi bide batzuk, gizonak. Dana da guztiena, ta bizitzako bear dana bakoitzarena da, ta benetan ori gertatzen ez ba'da, lortu arte jardun bear dau, bakoitzak berarena daualako.

Bakarrak ez gara: Alkar artean bizi bear gara: origaitik, bakoitzaren askatasunak neurtu bear dira, bestearena ez zapaltzeko. Bien bitartean dago gurearen amaia, baiña konturatu gaitezan ez dala amaia, gure nai bearrezko bat baizik.

Gizarte au, alkar arte au, bata bestea ez zapaltzeko, oiñarri batzuen bidez neurtu bear da: Eta ba-dagoz jatorrizko, berezko bete bear batzuk, eta gizonak bere larritasunean zaintzeko egindako bide batzuk. Gogozko askatasuna, bide bakoa izango litzake, amets bat bakarrik, gizartera bultzatu ezik.

PELLO

(Jarraitzeko)

NORK NORI?

Galdera au egikeran, nundik ete-natorren galdetuko dozu; errez-erreza da.

Sarri askotan, lagunekaz alkar-izketan egoten naiz, ta eztabaida onek urtetzen dau. Gu, beti, euskeraz mintzatzen gara, baiña iñoiz, batak edo besteak au esaten dau: «Mesedez, ezin egin leike erderaz? Emen dan onek ez dau euskerea ulertzen-eta».

Orduan, erdeldun bat dagola-ta, erderaz egin bear da? Ala euskeraz? Nik, neure ustez, euskeraz egin bear dala uste dot, bestela, non gagoz ba? Euskal-errian izanik, euskerarik egiten ez ba'dogu, ez dogu iñoiz gure izkuntzea salbatuko.

Nere ustez, eta tamala da esatea, baiña «konpleju» itzalagaz bizi gara euskaldunok. Sarritan beste au be entzuten dogu: «Erderaz obeto ulertzen gara». Ta zuk, ori esaten dozun orrek, zelan uste dozu ulertuko dozula, iñoiz euskeraz mintzatzen ez ba'dozu? Erderaz ondo egin ez arren be, orretan jarraitzen dozu, ta azkenean, ez euskera ta ez erdera. Tamala da benetan gure errian jazoten dana.

Onen ondoren, gauza bat esango dautzuet: Ez dotela nik iñoiz erbirik arrapau esku utsean etxean egonda. Ta zuek be, euskerea ulertzea nai ba'dozue, euskeraz egin bearko dozue.

Nork zor dautso errezpetua nori? Euskaldunak erdaldunari, erdalduna dalako, ala erdaldunak euskaldunari, onen errian dagolako, ta kanpotarrak euskera ikasten alegindu bear dabelako?

Uste dot itzartzeko garaia dogula; alegindu gaitezan gure izkuntza garbia aurrera eroaten.

LANDALUZE'TAR J. L.

EUSKAL HIT PARADE

Jorrailleko lenengo amabosteko neurketea jaso dogu, ta auxe esan bear. Azken aldi onetan neurketa onek bere neurria artu dau ta baretu da, ez dau lenago lez amabostetik amobostera izaten eban ankazgorako itzuliketarik, orain abestiak, obeak itxuraz, aldaketa laburragoak izaten dabez, eta barriak gora egiteko on-onak izan bear.

Irabazle ESTITXU dogu bere «Agur Maria» abestiagaz. Aurreko zenbakian esaten genduan, Estitxu'k ekarrela indarrik aundiena lenengo mailletara igoteko, ta uste dogu ez dala il onetan bakarrik izango irabazle.

Gaurko neurketa onetan, Estitxu'k iru abesti sartu ditu lenengo amarren artean, ta ori dau txarrena, autarkiak abesti bakarra bultzatu bearrean, iruri bultzaka dirala, ta indar banatze onek, bear bada, lenengo mailla-tik jatsi legike.

Gure abeslari jator au aurrera doa, ta ez euskal parade onetan bakarrik, Euskalerri'tik kanpora be gora doa. Ia laister gaillur guztietan ikusten dogun.

Au da Jorrailleko lenengo amabosteko zerrenda:

1.—«*Agur Maria*», *Estitxu' rena.*

2.—«*Orrela doa mundua*», *Jon Enbeitia'rena.*

3.—«*Itxaropen bat*», *Oleskariak abestuta.*

4.—«*Amets*», «*Araba*», *abesbatzarena.*

5.—«*Zure Begiak*», *Mozedades'ek abestua.*

6.—«*Bi Urte*», *Estitxu'rena.*

7.—«*Aurra Seaskan*», *Urretxindorrak'ena.*

8.—«*Umezurtza*», *Estitxu'rena au be.*

9.—«*Ezin Aztu*», *Luis Mariano zanarena.*

10.—«*Ipui Buirria*», *Xabier Madina'na.*

Disko barriak.—*Donato Larrañaga, zarauztarrak, atera barri dau disko barri bat; Belter etxeagaz eratua. Bere abestiak, onexek: «Guria» ta «Udaberri». Laguntzaille «Unai» irukotea dau.*

Beste disko bat, au be Belter etxeak sortua, Amaya Aulestia'k abestuta dator, ta «Unai» taldea emen be laguntzaille. Oneik dira abestiak: «Bai ta Ez» ta «Nere udazkena».

Irugarren diskoa, Belter etxearena au be, ta lengo biak lez, Arrasate'ko Kanta-Berri sarikez), eta «ANJELUZ», asko saldu dagizula Joxe Anjel.

Bestea, Mungi'ko Zarraga'tar Joseba'rena, aspalditik gengozan gazte onen disko baten zain, eta emen, agertu jaku bere abots ederra erakutsiaz, ta mutil gaztetik gizon izatera doan onen abotsa da benetan entzungarria, batek baiño geiagok gura leuke berezat. Abestiak, bereak: «Maitasunean» eta «Lagun Bizia». Abeslari barria izan arren, ta ez ain barria, aspaldi entzun izan



tan agertuak, bertako Joxe Mari Larrañaga'rena da; laguntzaille, zelan ez!, «Unai» taldea emen be, ta abestiak: «Nere Maiteari» ta «Euskal Mendietan».

Ta, ona emen, beste disko bi, abeslari gazte-gazteak egiña, Movieplay etxearen babespean. Bata, Bilbo'ko Joxe Anjel Goienaga' rena; amalau urtegaz kaleratu al izan dau bere lenengo biribilla, ez da makala! Bere abestiak: «Zure Kayolan» («Zure Begiak» Mozedades taldeak esango leuken dautsagu-ta, mungitarren bultzadakaz laster ikusiko dogu goigoian.

Ta, emen ei dator, barri-barri, Enrike Zelaia auspolariaren biribil bat. Aurrera ba, danok. Zorionak eta asko ta asko saldu!

Oraingoan ainbat euskal disko barri argitaratu dira, ta sail onetan erri aurreratuen neurri urreratu gara. Alan jarraiturik, gure izkuntzea be geiago zabalduko dogu. Ekin eta Ekin!

LOURDES ETA XABIER

KONTU KONTARI

«IZENA» BAI, BAIÑA... Bai, «izena» eukitetik «izanera» alde aundia egoten da askotan.

Ernegauta dator Jon adiskidea:

—Ain egun ederra gaur, eta zer jasoten jak, Jon?

Eta Jon'ek:

—Ez jagok eskubiderik. Ez jagok eskubiderik!

Azkenean be, esan daust, zer jasoten jakon. Auxe:

Seme bat euki dau bere illoba batek. Eta sekulakoak erabilli dabeez erri-liburuko ardurea daukonagaz, jaiotza-liburu agirian euskerazko izena iminte orduan.

Azkenean be lortu dabe euren guraria. Baiña Jon adiskidearen ernegualdia ez da izan orregaitik.

Euskaldunak izan umearen gurasoak, eta erderaz eta erderaz egiten ei-dabe beti euren artean. Euskerazko izena dala-ta, or ibilli dira erreta... eta erderaz berbetan gero etxean!

Eta zelako euskaldunak diran bere illobok, galdetzen dau Jon'ek Eta errazoe barik ez dago egon be gero nere adiskidea. Errezoez beterik dago.

«Izena» bai, euskerazko izena emon dautsee umeari, baiña zelako «euskalduna»k irtengo dau umetxo orrek orrelango euskaldun-euskaltzale gurasoekandik?

Errazoe guztia Jon'i. «Gora ta gora euskerea», mingaiñagaz, eta erdera ta erdera gero etxean! Ederto jagok ori, mutillak!

—Erremedio ona jaukagu onelako euskaltzaleokaz...

Errezoe aundia daukak bai, Jon. Ez jakiat nora joan geinkezan onelako euskaltzaleekin...

ÑAPUR-ZARRA

ZER EDO ZER

MIJEL ANJEL

Gizon ospetsurik izan ba'da erti-lanetan, Mikel Anjel aiñako gitxi. Etxe ta eleizgintzan, arkitekto lez, margolari ta irudigille lez be bere maillara eltzen danik ete-da? Au egiztuteko or dira Moises eta Dabid'en irudiak, eta oin urte batzuk dirala New York'eko erakusketara bialdu eben «La Pietá», ta Batikano'ko Eleizea bere «Kapilla Sixtina»ko margolan arrigarriakaz.

Kapilla Sixtina'ko lan izugarriak 60 oiñ goibe ta 30 zabaleran ditu. Askok ez eben uste erti-lan eder au toki artarako egokia zanik. Onein artean, Aita Santuaren zeremoni-maixuak, Biagio de Cecena'k auxe esan eban: «Irudiok toki orretarako baiño ezkotegi ala ardandegi baterako obeak dira». Eretxi orrek Mikel Anjel'eri min emon eutson, eta asperkundez, inpernukoen artean egoan Minos'eri Biagio de Cecena'ren arpegia ipiñi eutson.

Au ikusirik Biagio'k Aita Santu III Paul'egana yo eban, eta Aita Santuak erantzun eutson: «Ara, Garbitokian ipiñi ba'zinduzan zerbait zure alde egin neikean, baiña, tamalez, inpernutik iñor aterateko ez dot eskubiderik. Nire aginpidea ez da araiño eltzen».

1964'gnean bete ziran Mikel Anjel'en eriotzatik 400 urte. 90 urtedun il zan.

TORKUATO TASSO

Torkuato Taso XVI gizaldian Italia'n izan zan olerkaririk onena zan. 1595'gn urtean il zan. Eta gizonen artean sarri oi dan lez, ba-ziran bekaitzez begiratzen eutsoenak. Eta ikusi-eziña dagonean miña zoli erabilten da-ta, onetariko gaizki-esale batek guzurrez salatu ta espetxera sartzea lortu eban.

Tasso'ren adiskideak, kalte egin eutsonaren egikera lotsagarri bat egertu eutsoen, eta bere kaltez esan ebana guzurra zala zabaltzeko, aren gaiztakeria agertzea egoki izango zala-ta, zirikatu egiten eben.

Tasso'k erantzun eutsen: «Ez, nire arerioari ez dautsot izen ona ta bizibidea galdu eragingo; nik gura dodana auxe da: Iñori gaizki egiteko daukon gogo txarra kentzea. Nire aspekun-bengatza bakarra auxe izango litzape.

GAMA

Agur zuzendari jauna:

Deustu'ko Ikastetxe Nagusiko ikasle talde baten jokabideak eta egoera iñork be txartzat artu eztagiazan ta gure eskubideak arazo onetan oraingo legearen babesean ditugula (Derecho de réplica, dala-ta), zuk, ain zuzen, argitaratzen dozun aldizkari orretan Euskal Kultur Mintegia'ren oarraren buruzko beste oar bat bialtzen dautsugu, urrengo alean argitaratzeko erregua egiñaz.

Beste barik, aurretik eskerrak emonaz, agurtzen zaitu.

O A R R A :

Deustu'ko Ikastetxe Nagusia

Gizarte-Ikaskintza'ko ikasle taldea

Sorturiko zurru-murrueri erantzuteko eta Euskal Kultur Mintegia deritxonaren oarrak eskatzen dauan argitasuna emon guraz Euskaltzain batzueri Itaunketa bat egiten diarduan Ikastettxe onetako ikasle taldeak, argi ta garbi, auxe adierazo nai dau:

—Talde onek E. K. M.'gaz zer ikusirik ez dauala.

—Iñoiz, iñun eta ezertarako be ez dauala artu erakunde aren izenik, ta beiñ edo beiñ orretzaz itaundu ba'jako, oso-osoan ukatu dauala.

—Aitatutako Itaunketa orretan ta lenengo orrialdean, nortzuk garan agertzen dogula, au da: «CIENCIAS SOCIALES»ko talde bat.

—Itaunketa au Euskaltzain numeroko ta omenezkoari eskeintzea nai dogu, ta ez batzueri bakarrik, norbaitek zabaldu izan dauan lez.

—Aurrerantzean E. K. M.'k, bere izenari dagoikion itzala gorderik jokatuko dabela uste dogu.

JON FANO

GURE "ORIXE" IV

Ta zearbidez **Pio Aita Kaputxino Zauriduna**

Iru egun egon nintzan Pio Aitagaz...

Ona emen, «ORIXE»k dirauskun bigarren zera:

«Praillè orrek dio gaiñera, norbait pekatu larriaren mende baldin ba'dago, gizon orrek (ola deituten dautso «ORIXE»k Pio Aitari) ezagutzen dula ta gure Jauna artzera joaten ba'da, pasa egiten dala aurrera, ari Jauna eman gabe».

Erantzuna:

Ainbat eta ainbat aldizkari, txiki ta andi, edergarridun ta edergarribako, fraideek ta apaizek ta ez-apaizek ta ez-fraideek idatzirikoak erabilli izan ditut nik ta arduraz irakurri, be; ta alangorik ez dot ikusi ta irakurri nik iñoz be.

Ta ikusi ta irakurri izan ba'neu, be, ez neutson yaramon andirik egingo.

Ba ainbat gauza arin ta susterbako esaten bai da papereten, irugarren zatian adierazo dodan lez...

Baiñan «ORIXE»k yaramon egin dautso. Ta arritzeko dana ganera, aitatzen dauan errebistaren izena ipiñi barik.

Zergaitik ez ipiñi?...

Ori da ba, ez dakiguna, ez dau ezer esan-eta.

Eta nik ikusitako ainbait eta ainbat eta ainbat aldizkaritan ta liburutan ta paperetan ez dot aurkitu olangorik. Beintzat ez naz oartu.

Ortik neure yakin-miña, zein errebista ete zan... Eta geiago oraindik.

1954'garren urtean, Iraillean, iru egunez ta iru gauez egon izan nintzan Pio Aitagaz beragaz, bera bizi zan komentu berean, «Sant Giovanni» Rotondo'n, Itali'ko egoaldean.

Ara yoateko baimenik lortzea, ez zan gauza erraza. Baiñan neure adiskide Labiano'tar Eli, napar Kaputxino euskaldun barriak, gure Mixioen kontua eukanak, baimena lortu eustan; ta ganera lagundu, be bai, bidean, dala yoatean, dala itzultzean.

Olan, yoateko aukera ederra izan neban.

«AGUR»etik «AGUR»en bidez, ene agurra bialduten dautsot Erroma'ra, ene eskerrona erakutsiz ta bizitza zoriontsu, luzea opa izanez, Jainkoaren goramenerako ta Euskeraren onerako lan egiteko.

Iru egun areitan, ainbat eta ainbat bider, ikusi neban Pio Aita, siñestunei gure Jauna emoten.

Ta «ORIXE»k diñona... «...norbait pekatu larriaren mende baldin ba'dago, ezagutzen dula... ta pasa egiten dala aurrera, ari Jauna eman gabe», nik ez neban olangorik bein be ikusi, ezta entzun be, iñon ta iñoz.

Txarto yantzita, obe, yantzi barik ei etozen andrazkoai eta fraka barik edo fraka labur-laburrez etozen gizonezkoai, bai uko egin eutsela gure Jauna, ori entzun neban; baiñan besterik ez. Ta ori be ez dakit askotan ala gutxitan. Uste dot gutxitan izan bide zala.

Ta olango yantziakaz, bera ikustera zoazen emakume ta gizonak ez zituzala berenean, be, artuten.

Au be entzun neban; baiñan besterik ez.

* * *

Emon daigun, Pio Aitak noz edo noz egin ebala olangorik, au da norbait pekatu larrian egoela ezagutuz, pasa egin zala arengandik aurrera, ari Jauna emon barik.

Olangorik yakin ezpadakit be, emon daigun baietz, noz edo noz egin ebala.

Ba onelan erantzun geinkio «ORIXE» ri:

Jesukristo'k, ebanjelioetatik ageri danez, sarri-sarritan ezagun ebala gaiztagiñen ta pekatarien barrua ta anima; eta sarritan madarikatu, be, egin zituzala alangoak.

Orain Jesukristo'k, Jainko zanez, beti eukan Beregan doai ori; ta beti ta betiko egin eikean gogoak emoten eutsona.

Baiñan santuetan ez zan olan.

Teolojia ikus-mikusi ta zer edo zer ikasi dogunok, ba-dakigu yakin karista doai ori, santuetan, ez zala betikoa izaten, bein-beiñeko ta noz edo nozekoa baiño.

«ORIXE»k ori ondo ekian; baiñan aitatu barik, igaro eban; ez bide yakon ipintea gogoratu.

Ori be arritzekoa!...

Emen be barriro esan gura dot, nik ez dodala olangorik iñoz be ikusi, erabilli izan ditudan ainbat eta ainbat eta ainbat Pio Aitazko liburutan ta paperetan.

Eta ni Pio Aitagaz egon nintzan iru egunetan, be, ez nebala olangorik iñoz ikusi. Pio Aitaren auzia ta arazoa, «ORIXE»k emoten dauen baiño, askoz be garrantzitsuago ta korapillotsuago izan zan.

Baiñan ikustalderdi oneri, beste boskarren atala erantsiko dautsot.

Bitartean urrengo arte, irakurle, Jaunaren baitan.

YURRE'TAR YULEN A. K.



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

NABARNIZ'TIK OLERKARITZAN (II)

Gure erria, azkenean egin yakun bat Gernika'gaz: Nik ez dakit zelan artu eben erabagi au, edo noren aginduz beartuak izan ziran; baiña, egia, erriko geienok. alako mingotxtasun bat izan genduan geure kolkoan. Orduan atera neban abesti au:

NORTASUNA?

Datorren domekan,
dantza taldea;
gero danentzat
jan edari debaldea.
Onela azaltzen zuan
erri-buruak bere bukaera.
Oso pozik beragaz
erri artaldea.
Ez da nabarriztarra
nortasun zalea,
naiago dau berarentzat
buru auste bako bidea.
(1967'ko udabarria).

Egun arek itunak izan ziran niretzat: pena aundia artu neban gure nortasuna galtzeagaz, gure izatearen amaiagaz; orretara bururatu yatan:

ERRIREN BAT...

Istoria triste bat,
bat ainbaten artean...
Erritxo bat zan,
bera bizia.
Zapal zapal zuten,
erretixka gogorra...
Erri ori jatorst,
egun onetan gogora;
Erri artakoak gara,
gaurko egunean...
Kulpa zuela.
Ez dakit ori nik;
bakar dakit,
negarra ta odola
asko izuri zela.
Gizona erre zuten,
eta arri-zidarra jaso;
oitixka aren negarra
iñok ez zuten entzun.
Istori au egia da,
tristea, ordea.
Baña gure gizandia
ez da ukatu.
Gazteak gera gu,
dagigun zuzendu.

(Au be, abestuteko egin neban: abesti aire barri bategaz, 1967'ko udabarrian).

Amazorti urtegaz, nok ez dau izan etxerik iges egiteko gogoa? Gogaituta errian, edo nguruetan, iñoren aginduak entzun eziñik, «askatasun» baten naian. Ori jazo yatan niri be, ta orduan, goizetik oeratu ondoren, onako asmakizunak etorri yatazan burura:

NEGARRA

Negarra, putza, utsa ta miña
daroat neroiek
baña gure aita beti bardiña
izango da.
Eskari ba'dator neroiengana,
alperrik,
lenen beti da etxeko lana,
negarrik...
Politikan bera da dana,
biotzetik...
A, berez izan jakituna,
guk ez dogu ikusi gerrarik.
Nik daukat bizitzako esperientzia
ume orrek...
zuk zelan euki, itsotuta, arrazoia?
bizi barik...?
Ikusia da danentzat egia
alperrik ikasi
ikastea bakar da dirutegia,
ez zara ni beste bizia.
(13-VII-67)

Tristea benetan, gure neska lagun onari jazoa: Zer dala-ta egin eban bear au? Ezin izan dot jakin. Neska liraiña ta alaia. Ogei urte eukazan, eta iñor ba'zan, a bat umoretsua. Gauetik goizera galdu zan: bere zuzenbidea jakin nebanean, biotzetik urten eustan:

NEGARRA

Negar egin dot gauean,
negar egin dot ocan;
ikusi dot gaba
euskaldun gazte batean.
Bermio'tik urten du
Bilbo'rantzko bidean.
Eta an, zer aurkitu?
Gau illun illuna
bere barnean.
Illuntasunari iges,
illunean jausi da;
Negar malkoa du,
baña ez du nai argia.
Betiko jaku galdu.
Negar egin dot gauean
negar egin dot cean;
ikusi dot gaba
euskaldun gazte batean.
Betiko jaku galdu,
jausi da bidean
gizon guztien azpian
eziñik iñok maitatu.
Bizia ezta bardiña:
ez zagoz etxean;
gizonen griñen
ta naien barruan.
Bermio dotorea,
ango lagunak;
artu dozu bidea:
Bilbo ustel-kalea.
(6-I-1968)

Emen agertzen diran olerki edo antzekoak, milla aldiz abestuak ba dira, emen agertu aurretik. Euren doiñua, batzuena beintzat, sarritan aldatu izan dogu, baiña or dagoz, naita askorentzat ezer esan gura ez, niretzat eta beste banaka batzuentzat barru sakon bat dabelako.

P. M.

JAKINGARRIAK

ONU.—Guztiok dakizue ONU'a zer eta zertarako dan. Azkenengo guda-orokorraren ostean sortu zan, laterrien artean pakea ta zuzentasuna zaintzeko. Nazio-ordezkari asko biltzen dira an. Lan egingo dabe, bai, baiña dana ez da lana urrean, azkeneko izparrak dakarskuenez beintzat. Amar milloi dolar eralgiten dabez jan-edanetan ordezkari orreik. Zenbat egin daiteken diru orregaz. Zenbat gose kendu, zenbat ikastola jaso, zenbat gexo-etxe, zenbat gauza-on egin.

MOSKORRAK.—35.726 *(ea esan euskeraz: ogeta amabost milla ta zazpireun eta ogetasei) moskor izan dira lengo urtean London'en bakarrik. Eta zenbat ludi osoan! Batzuk ardaoakin moskortzen dira, beste batzuk garagardoakin, beste batzuk paitarragaz. Ameriketako indioak artoagaz egiten daben «chicha» ta «guarapo»agaz. Moskor asko mundu guztian. Eta zenbat gure Euskalerrian be.*

ESKERRAK JAUNA!—Au ta bestea esaten da ipar-amerikarretzaz. An bakoitzak gura dauana egiten dabela uste dabe askok. Erlijiñoa be lurrean dala. An be danetarikoak. Gauza on asko, asko, ta txarrak be asko. New York'eko janetxeetan, askotan, jaten asi aurretik esateko otoitzak jarri dabez maietan txarteltxuetan. Danak ez dira bardiñak. Katolikoentzat eurenak; protestanteentzat eurenak, eta judutarrentzat eurenak. Ikusten al-da olakorik gure errietan? Norbait Aitaren egiten... errezatzen asten ba'da, askok irri-barre.

EZKONTZEA, GAUZA AUNDIA.—Belika'k 9.650 *(ea euskeraz) apaiz ditu.* 159'*k apaizgoa itxi eben* 1971'*gnean;* 36'*k* 1969'*gnean; eta* 26'*k* 1967'*gnean. Danera,* 255'*k itxi dabe apaiz izatea azkeneko amar urte oneitan.*

GOIRIA



GU, EMAKUMEOTZAZ ARDURATU LEGIKEN BANKU BAT?

Bai, ba-da bai, gu, emakumeotzaz be arduraturiko Banku ori. Bere laguntza ta adizkidetasunik onenak, gure kezkak arindu naian, eskeintzen dauskuzan Bankua.

BANCO DE BILBAO

onek, emakumeen eskubideak onarte ditu.

Autorizado por el Banco de España

PABLO LUCAS VERDU

Gizon eta irakasle zintzo oneri itaun batzuk egitea garrantzi aundikoa dala uste izan dogu, eta origaitik itaun oneik egin dautsaguz:

1) *Nolakoak izan dira zure bizitza, irakaskintza ta ondorioak?*

—1946'gnean amaitu nebazan nere lege-ikasketak, Salamanca'ko Ikastetxe Nagusian. Arrezkero unibertsitateko naimenei jarrai dautset. Lege-filosofiaren Irakasle-laguntzaillea, ta Politika Eskubideen alboko (erderaz «adjunto») irakaslea izan nintzan Salamanca'n, eta bertan Enrique Tierno Galván'egaz bost urtetan lankide izan. Gero, 1957'gnean leiaketa edo oposizio baten, Politika Eskubideen Maixutza, Santiago de Compostela'ko Unibertsitaterako irabazi neban, eta bertan sei urte egin; «Publicaciones e Intercambio Científico»ko zuzendaria izan be bai. Ta Lege Ikasketen Bigarren Buru (au da, bigarren Decano). 1964'gnetik Politika Eskubideak, Deusto'n irakasten dodaz.

Irakaskintzea ez eze jakintzea geitzen ere aritu naz, baita gai asko aztertzen ere. Orrela, Bolonia'ko «Colegio de Los Españoles»en bi urte egin nebazan, eta doktor maillea artu, aurretik Madril'en egin ondoren.

Sei liburu idatzi dodaz, eta beste lan asko emengo ta kanpoko aldizkarietan, eta ainbat jakintza-batzarretan izan naiz, bai España'n bai Italia'n.

Poz aundia dot, nire ikasle batzuk nigaz batera doktor maillea notarik aundienagaz atara ebelako ta batzuk baita katedrak ere. Ikaste laguntzak edo atzerrietan ikasi nai daben askoi izenpetzen dautsedaz agiri bat edo beste.


Ikastetxe Nagusietako garai oso ez bardiñetan bizi izan naiz nere aldian; guztiz baketsuan eta amorrotsuan. Au ikusi dot, bai Prantzia'n, bai Austria'n eta Italia'n ere. Azteko aldakuntzaren larri ordua dala uste dot, baiña agintariei batereregi etorri yake. Unibertsitatea edozein nazioko neurkin egiazkoena dala ta nago.

2) *Deusto'n, zelako euskal taldea dago? Ezelako euskal kutsurik ikusi dozu emen?*

—Deusto'ko Ikastetxean ez dago euskal «talde» bat; geienak dira euskaldunak. Geien orren artean, gaztelako, galiziko ta katalunyako taldetxo batzuk ikusten dira. Guzti orren artu-emona, loretsua izango dala uste dot, bardintasun eta ez-bardintasunak ikusirik, bakoitzaren izateak zabalduko dituezelako.

Ezelan be ez nabe arritu euskaldun geienok, bederatzi urtetik arrezkero ezagutzen dodazalako, uda guztietan Deba'n egoten nintzan-eta. Gudea asi zanean bertan nintzan. Beti aintzat izan dodaz. Ezin neike ezelan ere ukatu: euskalduna langille ona eta prestua da. Onen ondoan bere ibilli ta ikusi-naiak dagoz: euskaldun argi ta noiznaiko batek Unamuno'tar Mikel jaunak (Nire Salamanca jaioterriko arrotasuna ere dan euskaldun onek), euskaldunak España'ko alkaloideak zirala esan eban.

Utsak ere izango dituez, baiña, naita zortzi urte izan Bilbo'n nagola, asti geiago



bearko neuke uts orrek ikasteko edo ta billatzeko. Bilbotarrak arroak dirala esaten dabe, giputzak baserritarregiak... baiña au sail gaitza da, beste egal guztietan antzera jazoten dalako.

Gaiñera, kanpotik datorren batek euskaltasunari ta euskaldunei aitzakiak bakarrik ipinten ba'dautsaz, errazoizkoa da emengoen erantzuna, ta orduan euskalduna txarto aitua izango da, aurretik ez dabelako ikusi... Errua aitzen ez dakienena da.

3) *Ezbardintasun aundia ikusi dozu baserritik ikasten etorri diranen eta kalekoen artean?*

—Bilinguismoa baliotasun aundiko jakintzea da. Umetatik izkera bi dakizanak edo jakin izateak, adimena bizkortu egiten dau. Naiezkoa biak ondo jakitea da, eta ez erdizka biak ezagutzea, edo biak txarto ezagutzea, zoritxarrez sarritan jazoten dan lez. Euskerea ofozialki, lege bidez zaindu bear da, filoloji aldetik aberastasun izugarrizko bat dau-eta. Ta bardin euskal biziak eta kultura bideak.

Baserritik etorri diranen eta kalekoen artean, ba-dagoz edo ikusi dodaz ezbardintasun batzuk. Galizia'n ere bardin gertatu yatan. Bearrezkoa da Unibertsitatea ta beste ikastola guztiak arazo onegaz konturatzea. Jakintzea ez da bakarrik uri nagusietan bizi diranena, erri guztiarena baizik. Eta benetazko erria, baserrietan bizi da, erri txikietan. Egun batetik bestera ez da lortuko gauza aundirik. Eta arazo onei zuzenbide bat emoteko, iñoiz be ezingo dogu, emetik izan ezik. Madril'eko Buru izateak eta burukeriak, iñoiz ere bearrezko erantzunik ez dautso emongo emengo saillari, bertotik izan ezik.

Zuek ekarri daustazuen itaunketari, luzaroago ta euskeraz erantzun gura izan arren, euskeraren gaiztasunak eta asti ezak galerazo dauste nai ori, baiña jarri or nire gurariak eta ardurak Euskal-erriatzaz, erri zar eta aundi onetzaz.

GAZTE TALDEKOAK

BURU-JABETASUNA

Gizonak jayotzetik dauka jabe izan-naia. Jabe izateko sortua da. «Menperatu ezazute lur osoa..., bizidun guztien jabe izan zaitezte», esan eutsen gauz guztien Egilleak lenengo gizakiai, eta ori esanaz jabetza-naia sorterazi zan aren barruetan. Jabetasuna dan ederra...

Jaungoikoa bera izadi guztiaren Jabe ta Egille da eta berak bere antzera egin eban gizona. Jaungoikoagana geyago urreratu eta jabeago izango gara.

Ba-dabil eta beti ibilli da gizona jabetasun-billa. Lurragaz jabetu da, jabetu da itxasoagaz; egurats eta aizeak menperatu ditu, lur-gain eta lurpeak, urpe ta urgaiñak be menperatu; lur legorrean dabiltzan abereak, uretan igeri dagiten arraiñak eta aizetan egaz dagien egaztiak bere menpean jarri ditu. Zabalago ta sakonago ibilli nai da, urrunago ta gorago egin nai dau... zabalago... urrunago... sakonago... gorago... Jaungoikoantzo, Egillearen antzera, jabe izan nai da. Orretarako egiña da.

Gizonaren barrua ez da iñoiz asetuten; ludi biribilla ez yakola naiko ta ba-doa orain illargira illargiaz iabetzeko, ba-doa Marte ta Venus ta Jupiter'era aiekin be jabetu nairik. Eta jabetuko da. Izakiak ez dautse ezetzik emoten. Illargiko mendi ta aranak, atx eta arrikatzak «ongi etorria» emoten diote eta bere eskuetara datorkioz bere menpean jopu bezela egoteko. Gizona dan aundi ta goragarria berak jabetzeko egiñak diran izakiokaz jabetzen danean!

Sortzez eta jayotzez izakien jabe ta nagosi dan gizonak ez dau, baiña, bide orretaz lortu beste gizonen iabetzarik. Egilleak ez dautso iñungo gizonari bere jayotzean beste gizonen jabetzarik, emon. Ori gizonek berak geroago ikusi ta erabagiko dabe zein, zeñekin, nola ta zertarako alkartu ta alkartzean nor izango dan zuzendari ta nagosi. Ementxe dator untzea. Gizonak izakiakan daukan jabetza gizonetara be zabaldu gura, ta beste gizonak ezetza emoten dautsenean berak indarrez *agintaritzea artu nai. Eta indarra ez da iñoiz izan gizonez bideak gizonki jartzeko era zuzena. Giza-bideak, adimenak eta naimenak zuzendutakoak izan bear dira, ez indarrez iñori leporatuak. Naiez, bai; indarrez, ez.*

Ba-ditugu gure artean indar gabe eta azkatasun osoz eragitako gizarte ta bazkunak: Uzkurtz edo Urtzi Jaunaganako bazkunak, jakintza-bazkunak, diru-irabazteko bazkunak, gizon baten zuzentzapean aurrera egiteko bazkunak. Onelako bazkunen elburua bazkideak erabagitakoa da eta bazkideak eurak ontzat artutako bidetaz ibilli ibiltzen dira. Baiña onexelako bazkunetan ere, ez-bardintasuna laster agertzen da. Ludi biribil onetan ez dagoz gauza bi guztiz-guztiz bardiñak diranik. Au daukala edo ori daukala, onela daukala edo arela daukala, ez-bardiñak dira. Gauzetan jazoten dana, gizonetan askoz geiago jazotzen da. Aurpegiz ezbardiñak eta adimenez ta nayez ez-bardiñagoak. Euskerazko esakun zarrak polito agertzen dauna: Zenbat buru ainbat aburu. *Edonungo gizonakaz zail be zail dana, gu, euskotarrakaz zaillago dala uste dot. Indarkeriz ez dauz iñork euskotarrak beraganatuko, bai baiña ta errez egia irakatsiz eta ontasuna agerteraziz. Egia ikusiz bide bateri jarraituko dautsola euskotarrak diñoanean, jarraituko dautso. Euskotarraren itza ez da errez aldatzen dana. Egi'rako jayoa da; egiari lotuta bizi gura dau; egia dau bere jabetzat. Bere buruaren iabe izan nai dau, ta jabetza ori lortzeko, egi-bidea da biderik eskierrena. Zer ete-da, baiña, egia? Ni naiz Egia ta Bizitza, esan eban gizon egindako Jaungoikoak. Baiña Jauna* zer *baiño obeto da* Nor. *Zer da, ba, buru-jabe egingo gaitun egia...?*

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.'AK

BAKEAREN IZATASUNA


Bakea ez da, bakarrik, gerrearen urrun aldia, ezta indarraren autsi-mautsiaren baimena be, bakea jabetasun ta leialtasun guztiagaz, zuzentasunaren lan bat da. Zuzentasun frutua da. Gizadiaren artera landara-sailla Jaungoiko-Sortzailleak jasota, eta gizonak, beti, zuzentasun obeago bategaz egarriturik, bere eldutasunera eroatera beartuta gagoz.

Gizadiaren ontasuna, lenengo lenengoz, betikor aginduaz zainduta, dago. Baiña denporeagaz, geldigabeko aldakuntzekaz azpiratuta dago. Orregaitik bakea ez da gauza guztiz lortua. Bakea betirako zeregiña da. Gizonaren borondate samurtsua ikusirik, pekatuekaz zauriturik, bakearen ardurak jabetasun iraupentsua bakotxari eskatzen dausku geure buruatzaz, ta aginpideari, zaintza.

Au ez da naiko. Bake au ezin leiteke lortu munduan, gizadiaren ontasuna ta gizonen arteko artu-emona indartzen ez ba'doguz. Onetara, bakea maitasunarena da, onek azpiratzean arteztuten ditu zuzenbideak izentautako elburu guztiak.

Gizona pekatari dan artean, gerrearen arriskua izango da Kristo biurtu arte, baiña neurri batean, maitasunean alkartuta, pekatutik iges eginda, eurak be indarkeriaren aurka garaipena eroan dagien, itz oneik betetu artea: «Euren ezpatakaz pakeak egingo dabez ta lantzakaz gurguilluak. Aberriak ez dabe geiago jasoko ezpatarik, batak bestearen aurka, ta iñoiz be, ez da geiago gerrarik sortuko».

RIKE'TAR JON



ERRIETAKO BERRIAK

Galdakano

Aurreragoko idazlantxu baten esaten genduan, zelan Zamakola (La Peña)ko Osea mendi-zale bazkunak eralduta Epailla'n 26'gn ospatu zan mendiko ibilketa neurtua, Bilbo'n, ezker alderdiko mendiak, Uzkorta, Pagasarri, Ganekogorta, Arnotegi ta abar zear, guztira ogei ta bost bat kilometro inguru bide-zior lupetztu ta aldapa erpiñak gora-bera ta eberdate euritsu baten, ibilketa naikoa.

Ibilketa neurtu orretan, orduan idatzi genduban lez, larogei ta lau bikote aurkeztu ziran ta baita amaitu be, neska ta mutil, geyenak gazte ta adin onekoak, baiña ba zan bat, gaztedi alai jator orrein tartean, urteatan gora, irurogei ta amairu urte igarotako bat be; gure argazkian ikusten dan San Salvador eta Ibarra'tar Errikarta mendigoizale kementsua, galdakanotar jatorra. Eta ez aurkeztu ta ibilketa amaitu bakarrik, beste askotan legez, neurketako zenbakiak atara dabezanean irabazle izan dala ikusi da, Arrieta'tar Sabin mutil euskeltzalea lagun ebala.



Baten baiño geyagotan esan dogu, ta alantxe da, ainbat ibilketa neurtu irabazia da, San Salvador adizkide zintzoa, ta ez beti lagunkide berarekin, lenen beronegaz joan naidabenakin baiño. Batekin joango ba'litzake beti, batonbatek usteko leuke «bestearena izango zala irabazte ori, baiña ez, bardin dautso bat edo bestea izan, jaramon egitekoa ba'da beintzat. Erakutsi ederra lasterka utsean ibilten diran gazte askori emon dautsena antziñako mendi zale kementsu onek; Zeuk dakizun legez irakurle, ibilketa neurtuak eztabez ariñen dabiltzanak irabazten, oiñkadak ondoen neurtuten dakiezanak baiño. Gure zorionak baten geyagotan, AGUR'en bitartez, Errikarta ta Sabin adizkide zintzoai, baita Ganguren'i be, irabazleak bertan bazkide diralako.

USANSOLO JAIETAN

Lerro oneik argia ikusi dabeneko Usansolo'ko auzotegi zabal bizitaletsua urteko euren lenengo jayetarako gertuta aurkituko dira, jayak urtean birritan ospatuten dabezan lez, oraingoak dira lenengo orreik. Oraingoak, Orrilla'n bigarren igandean, auzune ortako txadonera —txikerra aldi artan— osperik andienaz Jauna eroan eben urteurrena dalata; eta Azillaren 30'gnean Goi-Zaindari daben Ander Deuna goralduteko gertuten dabezanak.

Eztakigu zelango jayak antolatuak izango dabezan, baiña, bertako gaztedi jatorrak gertuten ba'ditu, uste dogu eusko giroko jai ta jolas bikaiñak izango dirala, ta orretara izango al-dira. Tinko usansolotarrak! «sartaiña» zeuron eskuetan dozuenean beintzat.

GAIXORIK

Bai, aspalditxuan makal samar dabil Sierra'tar Agustin gizon gazte euskeltzale jatorra, ta beraz AGUR'en irakurle ziurra. Zorionez oberantz doa ta lerro oneik argia ikusi dabeneko pizkat sendotuta aurkituko dalakoan gara, ta, orretara izan daiten eskatuko dautsagu Jaunari.

BASA-JAUN

Errenderi

AGUR aldizkariaren bidez zorionak Irun, Errenderi, Tolosa, Elduayen eta Segura'ko idazleeri, AGUR'eraiño eldu diralako berriak, eta euskera garbi ta errikoa, ulertu erreza egiten dabelako. Ta ori bear degu, ez or datorren euskera erderaz naastua eta zikindua.

Ori da gure euskera ondatzea ta besteren soiñekoaz gure euskera jantzi nai izatea. Orren arlote ote da gure euskera? Ez ote du izango bere burua zerekin jantzi? Au da, euskerari dagozkion itzakin?

Egia esan, gizaldi ontan gauza berri asko sortu da, eta jakiña, gauza berriak bere izen berria bear du, baiña al dan urbillen edo euskal katsu edo egokiena duna ipiñi, ta ez or azaltzen diran itxuragabeak, dispateak.

Ni enaiz idazle, baiña jarraitu gipuzkoar idazleak AGUR'en idazten eta AGUR zabaltzen. Berak eskatzen du bakuitzak arpide bat; ez da asko eskatzea. Naiz dala bizkayera eta gipuzkoera, euskera ona dakar eta merezi du laguntzea, aldan moduan, eran.

Batez ere zorion berexiak Andoni zanaren (izengoitia Añarbe) eriotzaz AGUR'en azaldu duanari, beraren antzeko euskera liraiñean argitaratu ere. Ezagun du aren euskeran kutsutua dagola. Izan ere Añarbe'z esaten dana oso gutxi da bera zanarentzat.

Nik izan nun zoriona beragaz itz egiteko ta bere begi ta ezpaiñetan zerion kristau jatorraren eta euskaldun zintzoaren usai gozo edo zumu atsegingarria artzeko. Kristau ona izateak, etzion oztoporik egin gizon jatorrari, gizon bezela, bere egitekoak ondo betetzen. Ez dezagun bada uste izan kristaujaugoikozkoak eta zuzen ibiltzeak gizonaren izakera beeratzen duanik; guziz bestera, goratu baizik; kemen geiago emanaz bere ezintasunak garaitzeko.

SOIÑU-ZALE

Arratia

ETXE-KALTE

Lentxoago batean, oraindik oraintzu, Iturbe'tar Mareano errikide ta adizkide ona, nire lantokian izan zan eta, arri ez nintzan biurtu eguraldi epel samarra izan zalako ziur asko. Eta lanari emonak gengozala, ona emen non datorkun mutil koskor mazal polita, gure arteko egin izan zana.

—Nongotarra az mutiko? Mutikoak baiña begiak zabaldu ta ezpanak estutu, ta bigarren itaun-galdereari era onetan erantzun: «Pero qué me dice; que yo no sé vascuence!»

Alaxe zan izan be; tutik be ezekian. Eta aitarenka ekin ondoren mutillaren aitarekin asi nintzan.

—Nik ezagutzen ez dodan Unanue deritxona iaukaguk errian. Nor dok bera?

—Enkartaziñoetatik gure errira ogia irabaztera etorri, baserritar neskatillakin ezkondu ta oso-osorik bertako egin dan bat.

—Euskerea orren sorterrian arrotza dok, eta Unanue, ala onen semeren bat? AGUR'en arpideduna dok. Zelan eta nolan izan daitekek ori?

—Arpidetzari buruz ezer etxakiat, baiña, aldi batez erdeldun izan zana, gaur egun, euskaldun osoa dok.

Emen doguz ba, gizon biren biotz, gogo ta arazo ezbardiñak, atzez-aurrerakoak. Jaun eta jabe bakarra erderea dan erritik etorri izan zanak euskerea ikasi, Iurre euskaldun errian, eta bertako semearen semeak, gurasoen erruz, txokoratu.

Ik egin dok egitekoa, Maren! Gure Erriarentzat izan bearreko semea auzoari saldu.

ARROTZ-ZALE

Batasuna bearrezkoa zala-ta, h'ren bat edo beste or-emenka ipintzea apalik eta barerik eskatu euskuen. Gaur egun ostera, kaiku kankaillu begi-gaixokiñari toki guztiak eskeindu ondoren, eta non jarri iñork ikasi baiño len, gangardun izkien deia be egin dauskue. Au da: euskera mantxatuan esaten dan «detra azentuatuak».

Geroagoz, «c» ta «v» ongarri dirala siñistu-arazoten be aleginduko dira, eta azkenez «double w» ta «double k» zarra. Parka irakurle.

Oartu, konturatu gaitean aramusareetako eltxoak izaterik nai ez ba'dogu.

LANDAJUELA'TAR A.

Ondarrabi

Jakingo dezu irakurle Gipuzkoa'ko egazkin zelai bakarra Ondarrabi'n dagoana. Egazkin zelai ederra edo ongi egokitua, Bidasoa ibaiaren ertzean eta ibai berari zati aundia kenduaz osatua. Egazkiñen jatxi igo pistak 1.745 neukin ditu, ta bertako joan etorria 50.000 lagun inguru urteko.

Baiña ez du gorakadarik egiten. Ia beruntz asi dala ere esango genuke. Beintzat igazko udan ez zan ibilli lengo urteetako udetan astero bat egiten zuan Ingalaterra'ko egazkiña, an Ingalatierra'n erreatoreak ez diran egazkiñetan iñork ez zuala nai ibilli-ta. Ta Ondarrabi'ko zelaian olako egazkin aundirik ezin diteke jatxi ta igo bere luzera txikiegia bai du. Ta ba da eztabaida naikoa bere etorkizunari buruz, ez bai du luzatzerik. Bere egitekoa egazkin zaleen ikastola izan litekela diotenak ba-dira. Beste batzuen iritziz ez da ain beltza bere etorkizuna. Beintzat orain arteko baiño egazkin aundiagoak ere ibilli omen ditezke bertatik ta baita gauez ere ortarako bear diran teniku serbitsuak jarririk. Orain bertan larogei lagun eramaten dituzten egazkin mota batzuk ibilli omen ditezke bertatik.

Ez dago ezpairik, egazkin zelaia bearrekoa du Gipuzkoa'k, ta orain emengoa bezelakoa errian eukitzea gauza polita da, ikuskizun polita, ezer nekegarri gabe. Baiña ereatore egazkintzar oietakoak unetik unera gora ta bera entzutea ez da atsegingarria izango, edo ez litzake izango.

Ez dakit Ondarrabi'ri ezer ekarri izan dionik egazkin zelai onek; diru kontuan irabazi aundirik ez. Eun lagunetik gora dira bertan ogia irabazten dutenak baiña guziz bakan ondarrabitarrak, eskuko beatzekin zenbatzeko aiña. Alaz ere lengo erara jarraitzekotan ez kentzea naiago izango luke.

Dana dala, beste erriren baten berria eginda emengoa kentzea erabakiko ba'litz ere bertan eralgi diran milloi laurlekoak lurrak salduaz errez atarako lirake.

Gaur dan bezela izatera iru alditan egindako lanekin eldu da, ta diruak beti berdin ez ba'du balio ere, iru aldietan eman ziran zenbakiak 193 milloi laurleko dira.

KAMIÑAZPI

Boise

Ariñeketa baten nabil, joan zan astean bialdu neutzuzan barrieri beste oneik ezarri dagiozuzan, Bagillaren 2, 3 ta 4'gnetan izango dogun jaia indartsu dator, gura neuke baiña, ortik be bateron bat zirikatu ta etorri-arazo. Zenarruzabeitia jaunakin izan naz, eta emen doakizuzanetatik batzuk onen inguruan jaso ditut, baita Valencia Hotel'en diran yurretatarrengandik be. Ara ba.

Bilbo'ra eskatu ta bidean ei-datoz berreun zato eta ez dakit nik zenbat beste apaingarri geiago; ate-gaiñetarako eta oin-azpietarako «Ongi Etorri» ak eta. Ba-dakizu, dirutza aundia batu bear ei-dogu-ta, orrelango gauzak ederto salduko doguz jai eta kermesetan.

Winnemucca'tik, gaxolintegiko Uriguen'tar Joe eta Martin Hotel'ekoak etorriko ei-dira lagun pillo aundi bategaz. Orretarako sei-zazpi berebil aundi orreitakoak itz-emonda daukez, eta McDermitt'en Alkortarrak eta Jordan Valley'koak batuta ei-datoz.

Elko'tik Euzkal-Orri'ko lagunak, eta Star Hotel eta O. K. Motel'ean jakin danez, elkotar euskaldun geienak emen izango doguz, baita Wells eta an egoaldera urriñago dagon Ely'koak be.


Atzo, Pocatello'n izan nintzan, angoak berotzen, eta ez zan berotu bearrik izan; emendik iru egunetan ezin ba'dabe be, danak izango dira Boese'n jai baten edo bestean.

Black-foot'en ondoan bizi dan eibartarra be bai bere danekin. Onuzkoan, Buhl'en izan naiz Barinaga'tarrekin eta emendik, eta lenago argazkia bialdu neutzun Twin-Falls eta Mountain Home'tik be, gaixorik ez dagon guztia etorriko ei-jaku.

Zer esanik ez, Reno'tik aruntzkoak be, Kalipornia osotik, Portola, Chico, Sacramento ta Oregon'eko euskaldunak be, berebillez edo egazkiñez agertuko jakuz. Aspaldiko lagun asko agurtzeko asmoan gabiltz.

Bat'batean, laster izango doguzan auteskundeak ia aztuta, inguru oneitako euskaldunak, geure jai onegaz lilluratuta gagoz, or egin izan ezin dozuenaren truk, emen izango dogu itzela. Ai, etorri al ba'zein!

SYLVIA'K


IDAHO
Boise
Nampa
Caldwell
Twin Falls
Jerome
Burley
Rupert
Pocatello
Idaho Falls
Weiser
Payette
Ontario
Emmett
Mountain Home
Gooding
Shoshone
Hailey
Ketchum
Sun Valley
Stanley
Challis
Salmon
Lewiston
Orofino
Grangeville
Moscow
Pullman
Clarkston
Wallowa
Enterprise
La Grande
Baker
Ontario
Vale
Burns
Ontario
Nyssa
Malheur
Jordan Valley
Rockville
Silver City
Grand View
Bruneau
Glenns Ferry
Mountain Home
Rupert
Burley
Malad City
Preston
Soda Springs
Montpelier
Bear Lake
Paris
Bloomington
Afton
Star Valley
Alpine
Jackson
Dubois
Salmon
Challis
Mackay
Arco
Idaho Falls
Blackfoot
Pocatello
Chubbuck
Lava Hot Springs
Malad City
Preston
Soda Springs
Montpelier
Bear Lake
Paris
Bloomington
Afton
Star Valley
Alpine
Jackson
Dubois
Wisdom
Lemhi
Leadore
Salmon
Challis
Mackay
Arco
Craters of the Moon Nat'l Mon.
Shoshone Falls
Twin Falls
Hansen
Kimberly
Filer
Rupert
Burley
Paul
Heyburn
Rupert
Minidoka
Burley
Albion
Declo
Malta
Oakley
Elba
Almo
Sublette
Burley
Rupert
Paul
Heyburn
Minidoka
Albion
Declo
Malta
Oakley
Elba
Almo
Sublette
Jerome
Wendell
Gooding
Shoshone
Dietrich
Richfield
Carey
Picabo
Bellevue
Hailey
Ketchum
Sun Valley
Stanley
Challis
Salmon
Lewiston
Orofino
Grangeville
Moscow
Pullman
Clarkston
Weiser
Payette
Ontario
Emmett
Horseshoe Bend
Garden Valley
Lowman
Idaho City
Boise
Nampa
Caldwell
Meridian
Kuna
Melba
Homedale
Marsing
Oreana
Silver City
Grand View
Bruneau
Glenns Ferry
Mountain Home
Hammett
Rockville
Wilson
Murphy
Owyhee
Jordan Valley
Rome
Vale
Ontario
Nyssa
Malheur
Burns
Harney
Silver Lake
Fort Rock
La Pine
Sisters
Redmond
Prineville
Madras
Warm Springs
Simnasho
Maupin
The Dalles
Hood River
White Bird
Grangeville
Lewiston
Orofino
Moscow
Pullman
Clarkston
Wallowa
Enterprise
La Grande
Baker
Ontario
Vale
Burns
Ontario
Nyssa
Malheur
Jordan Valley
Rockville

OITURA ZARRAK

Gure Erria, oindiño bere zanetan odola bizi ba'dauka bere, Erri zarra da. Orregaitik ekandu ta oitura zarrak ugari ditu. Ba leiteke bere nortasunaren zati ona oitura zar orreitan erakustea.

Oitura ta ekandu oneik gure aurrekoakandik artu dogun aberastasun ugaria doguz, eta gure egin-bearra eurak geitu ta edertzea dogu. Orretarako eurai eutsi ta indarra emon bear.

* * *

Oitura onein artean jaiak ditugu, batzuk Errian ain sakon zusterrak sartu barik, baiña beste batzuk, lenagorik etorriak, sakon sartuta dagoz.

Esaterako: Jon deunaren eguna ta aurre-eguneko suañoak; Blas deunaren eguna, bere ariak eta janariak onetsiaz; Agate deunaren eguna ta bere aurre-eguneko abesteak; kandelario eguna ta kandela bedeinkatuai buruz diran siñiskeriak; aratoste ta basoetako janaldiak; Andoni deun biak, alkarregandik ondo berezitu barik, daben oneraspena...

* * *

Oitura oneitan, sarritan, sorginkeria ta siñismen garana nastean dabiltz. Eta gizon lez, edo Erri lez, osoak izateko sorginkeria itzi egin bear dogu.

Onetarako jarraibide ederra doguz Agate deunaren aurre-eguneko abeslariak: euren diru-batzeari gizarteratzea emon dautsoe. Lenago dirua batu eta sabela ondo bete ezkero pozik izaten ziran. Gaur, ostera, diru ori gaizoetxeetarako edo gizarte-lan baterako izaten da geienetan.

Beste egun guztietan be oiturai sorginkeri zundea kentzea ondo izango leiteke. Esaterako, Jon-deun-suañoak esangura bat artzeko dagoz. Etxeetan izan daitekezan kandelak egun bakan batzuetan ixiotuteak be bere esangurea izan legike, abere-zaleak euren eguna ospatzeko eta euren arteko gizarte-arazoak astertzeko, Andoni deunaren eguna egokia litzake...

* * *

Eta beste oitura asko eta asko dira gure artean astertu bearrekoak: Eriotzorduan, ill-obietan, ezkontzetan (antxiñako oitura eder asko galdu ziran) jantzietan, esakunetan, abestietan, dantzetan, lanetan, jolasetan... Erriaren izaera zarra galtzen dan lez, eta izaera barri bateri lekua emon, bardin jazoten da oiturai



begira be. Baiña Kondairea konturaturik, oitura oneik aiztu barik zaindu bear doguz. Ez, gaurkotasun barik, ludian Erri atzeratu ta baragarri bat izateko, baiña bai geure izakereari eusteko.

* * *

Gero erbestetik, eta gaurkotasunak eraginda, artu bear doguzan oiturai be euskal-kutsu bat sartu bear dautsegu. Ez da au erreza, baiña euskal-izaerea barruan ba'daroagu, igarri barik, «artzen dauanak bere erara artzen dau beti».

Iñoren oiturak norberetu barik artzea zapaltze bat onartzea izango da eta gure Erria, txikia ta ilteko arriskuan dagoana, zuzen-zuzen, bere azkenera joango da.

Eutsi dagiogun gure izkuntzeari, eutsi gure oiturai; barriztatu ta osotu daigun gure izaera berezia eta errien artean Erria izango gara.

GAMIZ

Filolojiazko-jardunak VIII

GIZON BATEN GARAIPENA

Ez Institut'eko lagunek, ez etsaiek ez zizkioten Fabra'ri bere arauak onesten. Y grekotarren ordez I *latiñezkoa onartu zuten bai.* H *zearo kentzea ark nai zuanez ez zuan lortu al izan; eta damutasun au bizi guzirako gelditu zitzaion. Arausailla aburu batez ezik, botoz geienaren iritzira artu ala ez erabakitzen zan. Era ortan, azkenik 1.913 gnean, nola edo ala finkaturik utzi zituzten Institut'eko lege bait-liran. Iñor ez zuan aiek betetzera beartzen, bakoitza bere buruaren jabe zan, baiki, alabaiñan disziplina, ezi-bidea beti da onuragarri. Ori eskatu zien Prat de la Riba'k, dei egiñez abertzaletasunez eta batasun kariaz arauak at zitzaten.*

Mosen Alcover oso arauzale ez izanagatik onu ber-bera eman zien bere ikasle ta adiskidei. Aurrez-aurre Collet eta Carrera i Candi jarri ziran arauok antziñako ortografia zapaltzen zutela uste zutelako. B. Riera'k ere Institut'en aurka zer esan izan zuan. Berri-zaleok I *izkia ikurrintzat artu zuten. Beste idazle askoren artean isil-burruka barrendik zebillen. Auek izan ziran Alvocer'i eskatu ziotenak itzegin zezala.* «Lectura Popular» *paperean Mateu sotiltasunez, Maragall eta Guimera'ren lanak ortografia zaarrean argitaratzen asirik baitzan.*

Fabra tink zijoan bere bidetik aurrera. Urrengo urratza «L'escola Catala d'Art Dramatic» *prosodia maisutzat izendatzea izan zan.*

Orratiokan katalanzale arteko «soka-tira» ez zan eztitzen. «Jocs Florals» eta «Institut d'Estudis»eko lagunak, idazle eta olerkariak alkar jorran ziran adiskide... Au dala-ta «L'esquela de la Torraxa» *astekari errikoiak karikatura ta marraski irritsu agerturik makiña bat parre... etsaiei egin arazten zien. Anai-arteko burruka ez zan atsegiña. Folch i Torres anai biak, bata arauen aldekoa, bestea kontrakoa, agurra ukatzen zutela... Fabra, giro ura ikusirik naigabetzen zan, ez erri-maitasunak, norberekeriak eragiña bait zan.*

Abagune artan «Jocs Florals» *Kontsejuko Batzarrak arauak ontzat artzeko aolkua eman zuan, batzaldi ta sariketarako baiñan, azkatasunez eta egille bakoitzaren iritzia errespetatuz.*

Arauzale gazteak ezezkotan zeuden eta zarroi lekua utzi zioten. Zimak luzaroan ziraun, esan diteke 1.913 urte arte. Eta alare, urte gogoangarri ontan Francesc Matheu, egoskarra izan zanak Fabra'ri eskeintzion «Jocs Florals» *batzarraren lendakaritza.*

Lendakari berriak oso itzaldi paketsu ta biguña bota zien Lerida'n, bai gazte eta bai zarroi batasun-deia egiñez. Guzion egitekoa bait da katalanera garbiaren alde lanegitea. Ala zan baiña zail izan oi da aspaldiko errak itzaltzea. Asko ziran oraindik Institut'eko arauak begi-onez ikusten ez zituztenak. Eta auek, berriro, benetako Katala-Izkuntzaren Akademia sortu naien zebiltzan. Asmoa aurrera eramateko izenak bildu zituzten: Guimera, Matheu, Carreras i Candi, Riera, Rahola bat, abar eta abar...

Guimera Institut'eko lagunkide zala esan dugu, baiñan aren izen sonatuaz guziok baliatzen ziren. Eta esan eta egin jaun oriek «Akademia» dalakoa sortu zuten, Apeles Mestres, Riera, Oller, Catala, Mosen Grandia eta beste zenbait izen ezagun sarturik. Idazkera lege-berriak eratu bear zirala ta lan ortan asiaz zerbait erabaki zuten. Au izan zan guztia. Ortan bukatu zan Akademia aren bizitza urri ta laburra.

Garai artan Fabra ez zegon lo, oso erne baizik. Eten gabe lanean ari zala, 1.917 urterako «Diccionari Ortografic» argitaratu al izan zuan.

Bere betiko bide jakiñetatik, naski, bai aitor bear da asierako «radikalismo ta geiekeriak baztertu zituala. Aren lana garbitu ta obetuari arras arrera ona egin zitzaion eta asko zabaldu zan jendearen artean.

«Institut'eko bere lagunak gauza batzuk onesten zizkioten, besteak ez. Izkuntza guzietan aldaketak bearrezkoak izan oi dira. Fabra'k berak 1.913 *urtean emandako arauak* 1.917*'gnean aldatuxeak zeuzkan...*

Zio onengatik Carreras i Candi, «Geografia del Pais Vasco-Navarro» zuzendari ezaguna dugun jaunak oso zakarki eraso zion Fabra'ri... Iztarbegi bait zuan.

Gauzak tenore ortan zeudela Prat de la Riba il zan. Orduan gerta zitekeanik ez bearrik samiñena... Ura bait zan katalaneran batasun bidean itzal eta indarrik aundiena. Eta baita ere Fabra'ren babesa.

Onek jarraitu zuan bere lanean eta «La Revista» aldizkarian erantzun zien Matheu eta Lopez Pico jaunei, auek egin zizkioten akarrei.

Alegia ez zutela ametitzen jauntxokeririk... usarioaren ezik. Eta beste onako auxe: «Institut» *bai zala, eta erria bestea».*

Fabra filologoa ezik dialektiko ona zan. Ez zan alperrik auzitan sartzen, arrazoia zuala jakin arren. Irain, ixeka ta oldarrak igarotzen uzten zituan. Baiñan bai garai etor zedinean onez onez erantzuten jakin ere. Eta onelaxe jokatu zuan Mataro'n 1.918 *urtean, lenago Lerida'n egin zuan antzera. Bere iritziari sendo eutsiaz Institut'eko eta kanpoko lagun eta etsaiak entzun zezaioten.*

ANTONIO M.ª LABAYEN

PERU'KO LUR-IKARAK

Peru'n 1.552-1.970'ra, 418 urtean 60 lur-ikara eraman eta egari bear izan ditularik, Loraillaren 31'an izandako lur-ikarak, danok ausi ditu.

Arequipa'n, 1.582'go Ilbeltzaren 22'an, izandako lur-ikara, Marcalliren maillara iritxi zan. Etxe, eliz, erri etabar, dana apurtu, xeatu ta ondatuta utzi zuan. Eriotz aunitz, eta zauriruak geiago izan ziran.

1.586'garren urtean, lau urte gero, Uztaillaren 9'an, Lima'ko uri-nagusiaren zati aundia, lurperatu ta abarrakiturik, katedralaren bi dorreak lur jo zuten. Itxasoa arrotu, ualdi ta olatuak, mendiak beziñ aundi, Callao kaideko etxetaraiño eldu, ta bidean aurkitzen zuan guzia eramanaz. Egun bildurgarri ontatik urtebetera, 1.587'go Uztaillaren 9'an, beste lurikara ezaingarriak, Schura'ko erria austu ta xeakatu zuan.

Peru'n lur-ikararen zaztakadarik nabaitu ez duan erririk, ia ez da izango. Trujillo, Lima, Piura, Cuzco, Caravali, Taena, Chala, Angaraes ta Peru'n arkitzen dan Aneasch eskualdean, gertatua gaiñera. Baiña, danetan aundiena zalantzarik gabe «CORDILLERA BLANCA»n izandako lur-ikara da noski. Ondamendizko lur-ikara ontan, millaka Peru'tarrak bizia galdu zuten. Yungay, Raurahirca, danak, betiko lur-azpiraturik ta izkutaturik, gelditu ziran.

Naiz eta ibar ortako biztanleak beti izotz-molkoari begira, bildurrez bizi, etziran iñora aldendu, bertan jarraitu zuten. Txoko ua, ain maitea bait'zuten. Beren seme-alabegaz txokorik politenetako batean lan egiñez bizi ziran. Baiña, Loraillaren 31'an, miñutu batzuetan, bizia salbatu zutenak, ikuskizun ua ikusirik, arri ta zur gelditu ziran. Asarratutako esku batek bultzata bezela, aitz, ur eta izotza, erri ta baillara guzira eroriaz, zerua goibel, karraixi latzak, zarata ta ots bildurgarria, gero ta aundiagotzen, uri guzia lertu arte. 50.000 eriotz gutxi gora-beera izan zirala esaten dute.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

GOGOA

Gogoa da gizonaren arima, gizonaren izate, bultzagai; gizonaren ats bizi, susperkorra. Gogoa bear dogu edozertarako, bizitzan aurrera kemenez, biotzez, eragozpenak alboratu ta garaituz, bidean tinko iarraitzeko. Gogo barik gizona illik arkitzen da: aul, makal, indarga, bizi izateak dakarzkuzan bete bear ta, arazoei arpegi emoteko. Beraz gogoa dogu gogai, espiritu, arima, naimen, gogamen, oldozmen, gurari, biotza... Gogoa dogu eragille; bizia goiberatzen daben indar ezkutu ta, berezia.

Iateko, ibilteko, lanerako, iolaserako, ikas teko, bizitzeko ta, abar, gogoa bear izaten da ta, gogo orren eragin ta bidez, gauzak, gogoan artu, gogoan izan, gogoan erabilli, gogoan sartu, gogoan sartzen doguz ta, baita, gogoz bete, gogoz ekarri, gogoz artu, gogoz ibilli, gogoz egin, gogoz ausnartu, gogoz entzun, gogoz esan, gogoz norberatu, gogoz oldoztu, gogoz ekin, gogoz ikasi, gogoz ikusi, gogoz irabazi, gogoz aupatu, gogoz edertu ta abar. Gogoa izan daiteke epela, bizia, ona, txarra, aztuna, illuna, ariña, gaiztoa, sorgiña, ustela, nabarmena, zuria, baltza, aldakorra, aundia, sakona, urduria ta, ainbeste geiago.

Bizibera, gogo onez, txarrez, gaiztoz, zitalez, baltzez, ibilli oi gara ta, beste batzuetan ezertarako bizitasun, gogo barik arkitzen gara buruz-bera, makal, nekepean, gexorik aul, erdi illik...

Egunaroko iardunaldi, ekintzan, egunaroko artu-emonetan, gogozko diran ta ez diran bidegiro ta gertakizunakaz aurkezten gara ta, ortik gure ituntasun ta alaitasuna, gure umore txarra edo ona, gure gogo edo gogorik-eza. Ibilli bere batzuetan gogo ariñez, alai ta zoroki ibiltzen gara ta, beste batzuetan gogo illun, aztunez, gogo berakor iauziz azaltzen gara, gogo illez... Ta, iakiña, geure gogarteak, geure gogarketa ta gogorakizunak, norberazko gogo-iardunak bere izaten doguz, zerbait gogoz aztertu, zerbait gogoz egosi, t,a sakonki gogoratuz. Gogai negargarri, itun baita pozgarri ta, ederrak bere noiznai sortu ta gogoratzen doguz alako poz-atsegin edo atsekabe samiñez. Aldizka, gogo beroz, gogo betez, gogo osoz, gogo onez egin ta betetzen doguz geure bideberako zeregin ta arazoak ta, beste amaika bider, gogo otzez, epelez, gogo txarrez. Gogoa aldakorra izanik, gogoa ioan, ta, etortzen jaku era batean. Noizbait gogotsu diardugu, beste aunitz bider epel, gogo aul, aztunez. Gogaituta bere bein baiño sarriago arkitzen gara.

Gogoratu ta gogarazi bere egin bear izaten da. Zerbait gogoan artu, gogoan erabilli gogoan naspildu, gogoan egosi izaten doguz baiña, iñoiz iñori gogoa berotzen, gogoa kentzen alegindu gara ta, baita gogoak emoten dauskuna egiten.

Gizona gogo-soiñez bizi dalarik bere gogoratze ta gogo-lantzeakaz osatzen dauz bere egunak, gogoeta on edo txar, bere asmo ta egintzakaz bere bizia edertu edo zatartuz. Beraz gizona batzuetan gogotsu, onkara, gogo aundiz, gogo on ta aberatzes daurkigu ta bein baiño geiagotan gogo txar, ergel, gogo illez...

Gogoari buruz ari naizen ezkero ona emen ain ezagun ta errikoiak diran esakun batzuk: «Gogozko tokian aldaparik ez», «Egoa emakumearen gogoa», «Gorua gerrian ta gogoa kanpuan», «Bakoitzak bere gogara», «Guztien gogora ez len, ez gerora», «Gogo barik ez dago bizitzerik», «Bidaide, gogaide», «Gogoratu bai, egin ez», «Gogozko gauzak gogoz egiten dira», «Gogoz ian, gogoz egon». Ta, gogu kontu au geiegi ez luzatzeko ona aintziñako zortziko bat:

> Zuaitzetan den
> ederrena da,
> oian beltzean
> pagoa;
> itzak ederrak
> dituzu baiñan
> bestetan dozu
> gogoa.

MUNIATEGI'TAR SABIN

AGVR


III URTEA
40 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - ORRILLA - 27

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Atzeratuen Arazoa

Bizkaia'n Azteratuen Alkarteko zuzendaria dan Feliz Moratalla jaunagaz alkar-izketea.



Jorraillaren 26'gnean Atzeratuen Eguna izan dan ezkero, Bizkai'ko Alkartean zuzendaria danagaz alkar izketa bat izan dogu. Ez da arazo au batzuena bakarrik, gizarte osoarena baiño, ta, zer egiten dogu ori zuzendu ta laguntzeko? Ezer ez.

Orduan, argi ikusten da, gu bizi garan gizarte au atzeratua dagoala bere arlo onetan. Ez dautsegu gaur gure errian diran arazoeri erantzuten, telebiziñoz eta futbolez zapuztuta gagoz-eta.

Atzeratuen arazoa ez da batzuena bakarrik. Zenbat bidar esaten dogun: «Euren gurasoen ardurea da ori». Bai, baiña gurea bere bai. Guk, gizarte au osotzen dogu, ta gizarteko arazoak danenak dira. Noiz konturatuko ete-gara onetaz? Zer egin bear dogu gizontasun aundiagoa lortzeko?

Erantzun eziñeko itaunak bear ba'da; baiña bakoitzak bere buruari erantzun bearrekoak. Ikusi ta ikasi dagigun Moratalla jaunak diñoana:

—Zelan egin zenduen Alkarte au?

—Alkarte au, atzeratuak eukezan eta atzeraturik ez eukeen guraso batzuk sortu genduan. Onen elburua artzeratueri ta onein gurasoeri laguntzea da, daroen bizitza gogor orretan.

—Zenbat bazkide zaree Alkartean?

—Une onetan, millatik gora gara, baiña geiago bear doguz: diru aldetik lagunduko dabenak, lanean lagunduko dauskuenak eta abar.

—Gurasoentzat izaten dozuez berbaldiren batzuk?

—Bai, egunero 4 gizonek, arlo onetan ikasiak diranak, umeen guraso ta senideekaz alkar-izketak izaten dabez; onek asko lagunduten dautso gurasoari bere arazoan. Beste batzuetan, gurasoen arteko alkar-izketak bere izaten doguz; bakoitzak bere kezkak agertzen dauz eta danen artean konpontzen alegindu.

—Baserrietaraiño elduten ete-dira ikasi orreik?

—Bai, edozein baserritaraiño joaten gara, deituak izaten ba' gara. Deitzen ez ba'dabe ta guk jakin atzeraturen bat dagoala an, bardin joaten gara araiño. Esan dautsudan lez, gure elburua daneri laguntzea da, ta erriari erakusten alegindu arazo au danena dala jakin dagian, ta aldatu gura doguna ez dala ume atzeratua, ez, bere inguruan dabiltzanak baiño, ta obeto ulertuta, gaixoa pozik bizi daiten.

—Zenbat atzeratu dagoz Bizkaia'n?

—Ez dakigu ziur oraindik, baiña O. M. S. —Organización Mundial de la Salud'ek— danerako emon dabezan estadistikak onek dirala: 100'eko 1,5 atzeratu, ta guk Bizkai'rako 100'tik 1 bakarra artzen ba'dogu, amar milla atzeratu izango doguz. Une onetan, Bilbo'n 3.500 daukaguz zenbatuta, baiña ba-dakigu geiago dirala.

—Ba-ete dago atzeratuentzako eskola naikorik Bizkaia'n?

—Ez, ez dago eskola naikorik, baiña kontuan izan atzeratuen artean iru mailla dagozela; ta ikasketak egiteko guztiak ez dira duin; esate baterako, «test» batzun bidez jakiten dogu «coeficiente intelectual» edo zentzun neurria zenbateraiñokoa daukan, ta au 100'eko 50 baiño beerago ba'dago, ez dau balio ikasketak egiteko.

Ikastola gitxi dagozela esan dautsut, baiña arazoa ez da eskola sasoikoena, ta uste dogu urte gitxi barru osotuko dogula arlo au; gure burukomiñik aundiena beste au da: Zer egin eskola sasoia amaitu ondoren? Len ez zan orrenbesteko arazoa, era onetako geienak ez ziralako gizon-arora eltzen, au da, 21 urtetik aurrera. Baiña, orain, osakiñak bizitza luzatuten dauskue danori, ta batez bere atzeratu orreri.

—Zenbat ikasle izaten dauz irakasle bakoitzak?

—Irakasle batek ezin dauz amabost ikasle baiño geiago euki, bestela zoratu egingo litzake.

—Egin ete leikee lanik lantegietan?

—Batzuk bai, baiña lantegietakoak izaten daben mentalidadeagaz ez da egoki; beti ibilten jakez adarra joten eta abar. Era onetara bere burua salduta legez ikusten dau atzeratuak, eta ortik, beste gizonakaz lan edo itz-egiteko lotsa-konplejua artzen dau.

—Ba ete-da lantegi berezirik eurontzat?

—Bai, ba-dira. Bizkaia'n lau orrelako lantegi bakarrik daukaguz, or 77 lagunentzat tokia baiño ez dago, ta beterik aurkintzen dira.

—Lantegiarentzat irabazpiderik izango litzake atzeratukaz lan egitetik?

—Ekonomi aldetik begiratura, ez litzake irabazpiderik izango eurokaz bakarrik lan eginda. Esate baterako, atzeratu batek, bestelako batek baiño 100'eko 50 gitxiago egingo leuke, baiña orrein bearrak gizartearentzat onurakorrak izango litzakez, bestelako batek baiño ardura aundiagogaz eta obeto egiñak bear ba'da.

—Amazortzi urte beta ondoren eta lantokirik aurkitzen ez ba' dabe, izango dira eurentzako egoki diran etxe edo «residantzi»ren batzuk, ezta?

—Ez, ez dago ezer bere oraindik, batzuk asilo edo zoroetxeetara bialtzen dabez, baiña ori ez da euren tokia. Laterri aurretuetan, agintariak eurak arduratzen dira arazo onegaz, baita gizartea bere. Batez bere Suezia'n, ikasleak laguntzen dabe geien; emen Bizkaia'n bere, batzuk laguntzen dauskue euren opor-aldietan, baiña geiago bear doguz.

—Zelan erantzuten dautse gurasoak arazo onein?

—Ondo, ederto, nai ba'dozu, batzuk kristautasun aldetik begiratzen dautse, ta pozarren eroaten dabe kurutze ori, baiña eurak ez diranerako, ilten diranerako ikusten dabe, ta galdera au beti buruan: Zer egingo dabe gure umeak? Nor arduratuko da eurekaz? Ortik ikusten da argi, atzeratu nagusientzat egon-etxeen bearra dagoala.

—Ba ete-dabe guraso orreik euren seme-alaba atzeratuengaitik konplejurik?

—Geienak ez, esan dautsudan lez, geienak ondo daroe gurutze ori; batzu-batzuk garraztasun pizkat bategaz. Bion artean irugarren mailla bat dago, naizta gitxi izan or; euren semeak gordetzen dabezanak, iñork jakin ez dagian seme atzeratua daukeela. Au dirudunen artean sarriago jasoten da, «aukera oneko sendiak» deritxoenetan.

—Eroaten ete-dozue umerik Bizkai'tik kanpora ikasten?

—Bai, emen ikastola gitxi daukaguz ta emendik beste toki batzuetaea bialdu bear izaten doguz: Asturias, Avila, Naparroa, Araba ta abar. Baiña ez dakigu noiz arte itxiko dauskuen toki orreitan sartzen, eurenakaz betetzen ari dira-ta.

—Eta zer diñozu laister La Ola'n amaitzeko dagon Ikastolea-tzaz?

—Gaur arte egin diranetatik onena dala, baiña toki txikiegia. Une onetan bi millatik gora dira arako eskaria egin dabenak, ta berreun baiño ez dira sartzen. Au be, Aurrezki Kutxa'k egiña da.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

TENTUNEAN TUNTUN

«Zeruko-Argia»k aldizkari «neutral» bezela agiri nai du. Ori diñoe beintzat. Baiña, ba-du aspalditik bere zirikalari berezia, «neutralidade» ori arriskoan jartzen dauana. Besteengandik naiko «intzentzu» artuko ez ba'lu bezela, bere burua larregitxo lurruntzen ete dakian nago. Bere begiz jota ete-nago? Ori dirudi, betiko bere leloa nere euskaltzain izatearen meriturik eza bait-da... ta, ez dot ori iñoiz ukatu izan, nilako asko dala ikusi arren.

Adizkide, Bilbo'n jaioa naiz, erdal auzoan. Gure aita euzkotarra izanik ez zan euskalduna. Gure amari esker —sortzez eta biotzez euskalduna da, ta kontuz biotzez erdeldunak diranekin—, nere lenengo izkuntzea euskerea izan zan. Arrezkero, ikasketak erderaz egin bear izan dodaz. Linguistikea ikasteko erarik, ez astirik, ez liberatutasunik ez dot izan.

Ogibide dodan osagilletzan euskeraz egiten alegintzen naiz beti, jatozanak orrenbeste egin dagien —danok ori egingo ba'gendu— eta izkuntzeak dauan garrantzia adierazo naian. Gaiñerako orduak nola bete dodazan Jainkoak dakiz, ta ez neuke nai beste iñok jakiterik. Dana dala zerbait idatzi dot euskeraz, ez baiña beti agirian. Orain, bai.

Antzerki taldeak be sortu nitun Mungi'n eta Euskaltzaindiaren babesean egindako jaialdietan sartu be bai... giro obea gendun! Beste guztia zuk ezagutzen eta astitzen dozu... baiña, ez kezkatu, bear ba'da Euskaltzaindian, laister, nere tokia betetzeko aukerea izango dozu. Zer uste dozu?

Garratz zatoz, bai, 479'gn zenbakian, baiña «durrumak» zorabiatu zaitu, aurki. Nik h'dun idaztirik eta aldizkaririk ez dodala artzen esan ei-nuen... ta egia da. Gero, orrelako aldizkariren bat, iñoiz, irakurtzen dodala-ta, arritzen zara... baiña, ori be egia da; artu ala erosi naiz irakurri ez dira aditz bardiñak-eta. Ez artzeak ez du esan nai noizik bein irakurri ezin leitekenik.

Gero, Montiano ta Urkijo jaunak makillatzen dozuz. «IKAS» iztegia ez jatsu atsegin. Ni, aurre-iritxiz edo «prejuizioz» beterik ikusten nozu... ez ete dozu zuk be beste orrenbestekorik? Ni, h'ren aurka; zu, h'ren alde... baiña bardin.

Aztertu daigun orain zuk esandakoa: «Egilleak ez dakite euskeraz. Irakurleak pentsa beza zer eratako txita sor daiteken gorringo gabeko arrautze batetik». Zuringoan laprast egin ete dozulakoan nago, adiskide. Montiano'k —bestea ez dot orrenbeste ezagutzen— euskera asko ikasi du, itz egiten erreztasun gitxi izan arren; beste zazpi izkuntza ezagutzen ditu, ta urte asko, asko gero, daroaz irakaskintzan. Beraz, pedagoji aldetik begira gertatu du bere iztegia. Orregaitik, zuretzat uts diran itz bardin bi jartzea, adibidez: leor eta legor, ez jakiñean egiña danaren ezaugarria da. Ara baiña, ikasleak irakurgaietan batera edo bestera aurkitzean zer esan nai dauan jakiteko egiña da.

Itz-egitean erreztasunik ezak ez du ezjakintasunik erakusten. Or dozu Tovar jauna, euskaltzaiña ta goi-maillako izkuntzalaria. Mitxelena'ren tesisa be orren babesean eta gidaritza pean egiña da... baiña ba'ete-du Montiano'k berak baiño itz egiteko erreztasun aundiagorik?

Guzti ori gitxi ba'litz, ez dira ain itsumutuan ibilli gure iztegigille makillatuok. Karmelo Etxegarai ta Xabier Peña jaunak izan ditue laguntzaille ta korrektore —zuri, au esatea aztu egin jatsu, aurki—. Bear ba'da, ez dozuz ezagutuko, baiña euskera arloan ez dira edozelangoak. Xabier'ek, joan dan ogetamar urteetan makiña bat euskaldun barri agin ditu —euskera garbian gaiñera— ta bere ikasleen artean, euskaltzain bat baiño geiago izan da. Jaun oneik aiña euskera dakianik, zenbat? Beraz, «gorringo gabeko» arrautzea barik, gorringo bikoa dozu IKAS iztegia, ta ez edozelakoa batasunaren bidean.

Aurre-iritziak, mutil, ez dira gureak bakarrik. Eibar'en zin egindakoen artean, sakon sartua dozu gaitz ori. Ta, txarrena, gauzak nastatzen dozuez sarritan, salatari itxurea arturik: Izkuntzea ta politikea nastatzeak —ta sarri esan dogu— kalteak baiño ez dautsoz ekarri gure euskereari, bai len eta bai orain.

Beste aldizkari batekoak «bere betiko benetakoak» giñala esanik, salatu nai izan gaitue... ta zuk orain «zazpiak bat'ka» ibilliak gerala esanaz beste ori indartu nai.

Bai jauna. Nolakoa naizan ez dot iñoiz ukatu, baiña ez naiz iñoiz «bide erdian» jarri izan. Zergaitik? Erdian geratu ezkero, errez «pasatu» geinkez naiz batera naiz bestera, ta pekatu itsusi ori «originala» izan leiteke norbaitentzat... ez baiña gerutzat.

Zenbat gara? Zertan eta zertarako? Onerako, zoritxarrez gitxi ta sakabanatuta, ta «atxekeria» sortu ebenetik ona, askoz sakabanatuago.

Besterik gabe, euskererearen onerako ba'da, jarrai zuk ortik, ni emendik joango naiz-eta... al ba'da, pakean!

ARENAZA'TAR JOSU

AGVR

EUSKERA

Zabala-Arana

AGUR'eko idazle birek Zabal-Arana aita aitatu dabe: Urrutia'tar Gotzon eta Garatea'k. Baiña batek zeruraiño jaso ebana besteak lurperatu egin dau.

Ni ez nago Zabala-Arana'tzaz epairik emoteko moduan; bere zerbait iñoiz irakurri izan dodala ta nago, baiña gauza andirik ez. Ala be Garatea'k esan daben zerbait argitu neikeala uste dot.

Zabala-Arana'ren euskerea ona ala txarra zanik ez dot esango, baiña zailla, ulertu gatxa zala bai ba-dakit. Baiña bere gramatikea ez da bere idazkeraren antzekoa. Gaur be saltzen dan bere «Gramática Vasca»k akatsik txikienik be ez dauko. Emoten dituan ikasbideetan maixu ziurra da, ta jardunkizun edo ejertzizioetan darabillen gipuzkoar euskerea, garbi, errez eta argia. Ara emen bertatik artuta esaldi batzuk:

«Arrantza ezta langintza txarra; baiña, arrantzaleak batzutan gorriak ikusten ditue».

«Ez dakit nungoa zeran eta nundik nora zabiltzan».

«Sagardotegietan luzaro egotea ta berandu etxeratutzea dan kaltegarria!»

Olakoxea da bere gramatikan darabillen euskerea.

Garatea'k aitari-edo entzunda idatzi ditu idatzi dituanak, baiña Zabala-Arana'ren gramatikea eskuetan erabilli dabena ez da errez siñistutekoa. Nire esanak baiño balio geiago dauke-ta, aita Villasante'k bere «Historia de la Literatura Vasca»n Zabala-Arana'ren gramatikeaz diñoana irakurri daiala.

Aldi aretako aldizkarietan argitaratuten ziran lanak ezin ei leikezan irakurri, bere aitak diñoanez. Esate baterako, erriko barriak aitu eziñekoak ei ziran erabillen euskereagatik ta obe ei zan erderazkoak irakurri, diño berak.

Orain lez orduan be ulerterrezago ta zaillago idazten ebenak egoazan; baiña errietako barriak ulertzeko naikoa zan ogei itz barri edo neolojismo jakitea. Gu (ni, ez esateagatik) ez giñan euskal ikastolan ibilli, euskal aldizkarietan ikasi genduan euskeraz idazten; ta esaten ebena ulertzen be bai.

Gaur be euskaltzalea danak ez dau irakurri barik lagako euskal aldizkaririk, orri bat ezin ba'dau bestea, idazlan bat ulertzen ez ba'dau beste idazlana. Ta orduan be bardin; euskaltzaleak irakurri egingo eben ta irakurriaz ikasi ta ulertu.

Jakiña, onekin ez diñot irakurgai zaillik ez dagoanik eta errez ulertzeko eran idazten alegindu bear ez garanik. Ain zuzen, bere idazlan ori etorren zenbakian etorren gai onetzaz idatzitako nire idazlana be. Baiña arako aranatarrak lurperatu nai ori ez dot ondo ikusten eta orretxegatik asi naz.

Aldi aretako idazle askoren idazkerea gaurkoa lakoa zan; ni orduantxe asi nintzan euskeraz idazten ta iru-lau neolojismo ta berak aitatuten daben «j» kenduta, orain lez bardin-bardin idazten neban. Ba-daukat orduko artikulo bat edo beste ta nai izan ezkero argitaratuko neuke.

Aranatarrak au ta bestea entzuten da. Baiña gauzak argi esatekotan, ikasleak baiño maixua aitatutea obe da. Arana-Goiri amazortzi urte arte erdaldun utsa zanez ezin eikian euskeraz maixu andia izan; ez beintzat Azkue aiñakoa. Ala be, gauza batzutan oker egon ba'zan be, euskal gramatiko lez naikoa nabarmendu zan, euskera alderdi edo ikastola bat sortzeko gauza izan. Baiña ori gitxiena da; Arana-Goiri euskera alderditik aztertu nai danean beste au da abots sendoz esan bear dana: iñork ez dautsala emon euskereari berak aiña indar, bera izan ez ba'litz milla aldiz gitxiago erabilliko zala literaturan eta baita itz egiten be, ta bera izan ez ba'litz berari arpegi txarrez begiratzen dautsen gaurko idazleak euskal idazle ez zirala izango.

Au ez da zerbait esateagatik esandako zerbait. Azkue'n «Morfología Vasca»n irakurri leiteke onek diñona: Arana-Goiri'k bakarrik beste guztiak baiño geiago egin ebala euskera aldez eta «bustoa» edo «monumentoa»-edo eskatzen dau arentzako.

KAMIÑAZPI

IZKUNTZAREN GARRANTZIA

Gizonaren bizitzan, batez be gizarteko artu-emonetarako, izkuntzak daukon garrantzia sentzuna galdu ez daben edonork ikusten dau, naiz ta sarritan bear dan bestean ulertu ez. Izkuntzaren bidez gure gogapen, biozketa ta gure barrenengo gauzen barri emon geinke. Orretarako biderik eroso ta berekoena izkuntza da-ta. Baiña izkuntza guztiak ez dira bardin. Norbere yayotzetiko izkuntza ta bizitza ta artu-emonetarako ikasten diran izkuntzaren artean alde andia dago. Norberea biotzeraiño sartzen da ta ikasitakoa biotzeraiño ez da sartzen. Eta sartzen danean egiz esan leike arimaz be aldatu egin dala. Izan be, norberea ez dan izkuntzan, gorengo maillara eltzea ez da gauza erreza. Ori dala-ta Lope de Vega ospetsuak esaten eban: Besteren izkuntzan gorengo maillara iñoz ez dala eltzen. Besteren izkuntzak ikastea, gaur batez be, gauza ederra da benetan, baiña norberea ondo ikasi ta biotzean zustraituta eukitekotan. Eibar'tar Aita Galdos ospetsuak esaten eban lez: Nik onenbeste izkuntza (amabitik gora ziran) daukodaz buruan, baiña bat biotzean: Euskerea

AMAGANDIKO IZKUNTZA

Amaren izkuntza ta amagandik ikasitakoa ez dira bardin. Amagandik ikasitakoa, buruan daukoguna azaltzeko baiño geyagorako da, obea da gure gogoizatearen ama dalako. Biotzaren barreneraiño zusterrak botaten ditu ta gogo-izakereagaz bat egiten dalako egundo be guztiz ez da aiztuten, bizitzaren azkenerarte irauten dau-ta.

Au egiztuten daben yazokun asko aitatu leikez. Ara batzuk: Gure Xabier Prantzizko deuna, Sanzian'go ugartean il zanean, amagandik ikasitako otoitzak Euskeraz egiten il zan. Frobes gogo-iztilari edo sikologoak diño Ameriketan bizi zan eliz-gizon batek esaten ebala, bere eleiztarren artean, aleman eta suizatarrak izan ta amagandiko izkuntza 50 ta 60 urtean erabilli ez arren, il zorian amaren izkuntzan otoitzak egiten ebezala.

Torras ta Bages gotzain ospetsuaren bizitzan irakurten da, bein baten zaurituta il-zorian, konorte barik egoan batengana deitu eutsoela. Prantzeza izan arren, txikitatik Kataluña'n bizi ta prantzeza astu egin yakola. Katalaneraz itz egin eutson ta yaramonik be ez eutsola egiten. Orduan norbaitek esan eutson prantzezez itz egiteko, amagandik txikitan prantzeza ikasita etorri zala-ta. Prantzez itz-egiñagaz batera bereala bere senera etorrita erantzun egin eutson.

GOGO-BIZITZA TA AMAGANDIKO IZKUNTZA

Ziñestea barruko gauza danez, ez burukoa bakarrik, biotz eta bizitzakoa be bai, Eleizaren guraria, beti izan da kistar-irakatsiak eta otoitzak bakoitzari amagandiko izkuntzan irakastea. Aldi baten gure artean amaika eragozpen izan gendun, zentzunak erakusten dauskunez «euskeldunei euskeraz» irakasteko. Gaur zorionez, gauzak aldatu dira. Zirilo ta Metodio deunak IX gizaldian eslaboentzat lortu ebena lortu dogu. Eta lenago be olantxe egiten zan Kongar yakitun ospetsuak diñonez, Erroma'n VI'ean, norbait bateatzera eroaten ebenean itaun au egiten ebela: Jesukristo gure Jauna ze izkuntzatan autortzen dau? Eta erantzuneri egokionez (orduan geyen bat lateraz ala gerkeraz), alantxe Ziñeskintza esaten eben.

ARA AU EGIZTUTEN DABEN YAZOKUN BAT

Guztiok dakigu ainbat euskeldun Iparr-Amerika'ra artzaintzara yoaten dirala. Idaho'n bakarrik 30.000 bat ei-dagoz. Belloc'eko beneditar A. Gachiteguy'k ikertu zituan eta 1955'gnean idazti eder bat argitaldu eban «Les Basques dans L'Ouest Americain». Berak diñonez, euskel-abestiak eta itzaldiak eleizan entzunaz pozez negarra erioela yarten zirala. Eurek autortzen eutsoen, pére, mére, father and mother, padre y madre'k egundu ez eutsela berotzen biotza aita ta amak lez. Baita, bizitza guztiko autortza egiten etorten yakozala be, eta lenagoko gauzak zertan nasturik ez eukela esan ezkero, auxe erantzuten eutsoela: «Baiña jauna, euskeraz aitortu barik ez naz baketuten». Nok aztertu daike biotza eraldu daben amagandiko izkuntzak bat egiten daben lokarri eten-eziña?

GAMA

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendati ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Pozak eta Kezkak

ARRAUTZAK ZUTUNDUTZEN.—*Peña' tar Xabier'i zorionak! Beste banaka batzuen artean IRASLE AGIRIA, bere ikasketak gorengo maillan bukatu ondoren ziur asko, lortu al-izan dau. Orretan ez asko ez gitxi dakienak emon dautsela-ta, ez izan ardurarik; orain artean ainbeste urtetan «alperkerian» ibilli dan gure Peña jaunak, emendik aurrera, irakasle bide neketsua artu bearko dau. Zozionak ba barriz be!*

* * *

POLBOREA ASMATZEN.—*Bein, igeltsero ezagun bati, Azitain'go basa-eleizea zuritzeko agindu eutsen, ta zuritu be karez, ederto zuritu eban. Arrezkero, eleizea berak egiña zala uste izaten eban eta arroki esan be. Ba-litzake ba, Xabier, zuk orain arte egin dozun «apurtxo» guzti ori, orrei esker egin al izatea, ta oore guztiak orreintzat izan bear eta ez zuretzat: «Zein gizonkiro dabillen gaur gure mutilla aitaren soiñekoetan!»*

* * *

PANPIN-ARIAK ESKUAN.—*Baiña, asmo bat dabil danorren azpitik; ez dakie orreik beste jokorik-eta: Irakasle agiriak duan eta azterketa barik emon ezagun-ezagun diran irakasle jator batzueri, ta gero —garbi esan dabe—, azterketa baten ondoren, bearrezko azterketea berau, neskato zintzo ta nekaeziñak, ain gogor ta kementsu irakasten ari diran beste orreik —larregi-edo doguz itxuraz— agiri ori irabaztera beartu, eta euren «babesean» lotu: «Kontrolatu»!*

PIPER-ZIRI

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

GAZTE

ZAZPI EGUN

ASTELENA

Amets egin det. Euskalzaindiarekin egin ere, ain zuzen. Auxe izandu zen nere ametsa: Aukera berdiñak ematen asi zirela euskaldun guztieri. Euskeraz ere —EUSKERAZ— jatorki mintzatzen asiak zirela; itz batean bukatzeko: Esukalzaindia zela eta ez erdalzaindia.

Gutxi iraun zun ordea pozak, euskaldunen biotzean. Gazte batzuk, bonba bat arturik, euskalzaindia zapaldu nai izan zuten. Bonba ori lertutzera zijoan une berean esnatu nintzen.

ASTEARTEA

Nere arreba «trolebusean» euskeraz mintzatu zen; bertako «kobradoreak» etzion ulertu, ta arpegi arrituakin begiratzen omen zion. Ez da arritzekoa, orrela gaude oiturik. «Bat Donosti'ra» esan bearrean, «uno a San Sebastián» eskatzen degu, «Egun on» esan bearrean, «Buenos días», «Kaixo»ren ordez, «Hola». Orrela jakiña danez, Euskalerrian, euskeraz entzutea oso zailla izaten da. Zergaitik arritu? Esnatu gaitezen, eta nortasun sakon bat osatzen saiatu.

ASTEAZKENA

Negu luzea gijoala dirudi. Otz egiten du. Jendea ez dago kontentu. Batzuk irrikitzen dagoz, egualdi onak egin eta ondartzara joateko. Gaur Usurbil'en izan naiz. Elurra egin du. Oso polita zegon S. Esteban izeneko auzoa. Aiton batekin egon naiz izketan, arraintzale izana zen bera, gaur, urteak aixa iges egiten dutela dio. Bere denboretako ekintzak kontatu dizkit. Pipa eretzen eta irriparrez utzi det gure aitona. Gurea esan det. Bai gurea da: euskalduna eta jatorra.

OSTEGUN

Pasai Doniban'en izan naiz. Zazpi neska eta ni bildu gera, bi ordu barruan, mai baten inguruan. Jainkotzaz eta euskal arazoaz izketan jardun gera. Bakoitzak bere iritziak azaldu ondoren, bat ez gaiñezko guztiak ulertu giñen. Ez da arritzekoa. Bakoitzak askatasun osoa izaten du bere pentsaera azaltzeko. Orrela; bera ez zetorren bat gurekin. Neska au, denbora luzean itzik egin gabe egoten zen, berari ondoena iruditzen zitzaionean sartzen zen eta orduan nai zituenak esaten zitun, batez ere astakeri nabarmenak «botatzen» zitun guztion aurka. Askaok erabiltzen dute jokaera ori tamalez. Txarrenean ere, alkar ezagutzeko aukera izan gendun.

OSTIRALA

Amale, Donosti'ko idazle trebearekin egon naiz. Amale zuzena da, argia, burrukalaria. Amale, nola ez, euskaldun osoa da. Goitik beraiño esan nai det. Orrelako idazleakin egotea, poza ematen du. Poza ta asko ikasten da gaiñera. Eutsi eta jarrai AMALE.

LARUNBATA

Lezo'n, nere errian, amabi-amairu urteko mutiko bat, bikaiña datorkigu. Txistularia da bera, ta dagoneko ain gaztetxoa izanik, txapelketa bat irabazi berria du Donosti'n Astoria antzokian. Laister azalduko da beraiekin egindako alkarrizketa bat AGUR'en. Orduan gauz geiago jakingo degu txistulati gazte onetzaz. Au ote da Polentzi Gezala'ren jarraitzaillea?

IGANDEA

Mendian, mendigoizale tartean igaro nuen egun erdia, gaur egun, mendigoizale asko erdaldunak dira. Abestiak ere, erdaldunak. Nun gelditu dira abesti goxo euskotarrak? Bertako irrintziak?

Mendiak triste dagoz noski, zikinduta gaiñera. Paper zikiñekin inguraturik. Garbi ditzaigun mendiak itxurez eta nortasunez.

RAMON ZAPIRAIN

III ASKATASUN ESKUBIDEA

4.—GIZARTE ARAZOAK

Urteak zear ikusi zanez, gizona, bakarrik, ezin zan ondu; besteen laguntasuna bear eban. Orretara Estaduak sortu ziran: gizonok neurri on baten neurtzeko. Alkarteak bata bestea obeto ezagutu ta laguntzeko sortu dira. Alkarte txiki baten ondoan, beste bat dago, ta onen gañetik beste alkarte aundiago bat, azpikoei zuzenbide bat ipintzeko.

Askatasunak artu-emon geiago bear eban gizonen artean, eta alkargoak sortzeaz osotu eban, alde batetik, bear izan au: gizonen artean artu-emon geiago sortuaz.



Azke izateko, lotu bearra iñoiz.

Bakoitza norberaren aunditasuna bakarrik lortzen ari ziren aldietan, besteak zapaltzea zan bidea. Ta indartsuagoak dana eurentzat artu orduko, alkargoetara jo bear izan eben, alkar ezagutu ondoren, indar bat lortzeko.

Gaur eguneko arazorik gogorrena, nire ustez, au da: Danok, iñoiz ez lez, askatasuna deadarka, garraxika eskatzen dogu, baiña egi orduan, aberastasunari lotzen gara, diruaren morroi egiñik. Ori be, beste morroitasun bat da, menperatasun bat. Eztabaida sortuta dago:

batetik . . . — dirua — ondasuna — bizi lasaia

bestetik . . . — askatasuna — ezelako morroitza — eza

Askoren ustean, bien neurria gaitza da, oso gaitza, ia eziña. Egia, begirakada baten, gaiztasun aundia ikusten da, orren erdi-bidea artzeko, baiña era edo modu ori, bearrezkoa dogu, gizonaren jatorria, berezitasuna zapaldu nai ez ba'dogu.

* * *

5.—JATORRIZKO EDO IZATASUNEZKO ESKUBIDEAK

Estadu baten barruan gaiztasun aundiak doguz «emetik onaiño da askatasuna» esateko. Estadu bat naste aundia da, ta bertako eskubide ta egipideen neurriak artzea, latza.

Estadu barruko zuzendariak, askatasunaren izenean amaika astakeri egin dabe. Ori dala ta, Estadu barruko gizarteak, euren zuzendariei neurri bat ipintea bearrezko dabe, ta indarra, indarraren aurka, une batean ipiñi bear ba'da, ipiñi egiten da, beste erarik egon ezik.

Gizonak bear-izan batzuk be ba-ditu, berezkoak; ta bear-izan orrek zaintzeko, eskubide ta bete bear batzuk izango ditu. Onen artean gaur argi ikusten doguz, lanerako eskubidea ta baita alkartzeko eskubidea be.

PELLO

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

CASCO VIEJO

TENDERIA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

KONTU KONTARI

Entzun dodanez, «UXOLA», «KAMIÑAZPI» ta «BASA-JAUN», nire bizkar barre egin gurarik dabiltza. Irukoitz ederra, itxusi ezpalira! Baiña laga bakean! Neuk moztuko dautsoedaz orrei belarriak. Eta orduan ikusiko dogu nork nori barre egiten dautson!

* * *

Joan zan illaren 23 ta 24'an, San Jorge ta San Marcos egunak izan ziran. Eta adiskide bati, danok dakizuen esakuna gogorazi neutson:

«San Jurji, artoak ereiteko goizegi».

«San Markos, artoak ereinda ba'legoz».

Ooori esakun zarra dok mutil! —erantzun eustan—. Orain aldi barrietan gagozak eta alan esaten dok:

«San Jurji, atxeak ereiteko goizegi».

«San Markos, atxeak ereiten berandu zatoz».

—Orduan... San Jurji goizegi ba'da, ta San Markos berandu... zer egiteko gagoz?

—Montreal'era joan.

—Leku onera! Orra zer irakurri neban Bilbo'ko izparringi baten, lengo egunean, euskera batuan idatzita: «Montreal. (Efe-Reuter).—Mwepu-Sampu, exprimer secretario de la embajada de Zaire en El Cairo, ha sido condenado ayer a diez años de cárcel, por introducir 50 kilogramos de *hachis* en Canadá».

* * *

Ezkon-berriak egin eben euren ezkon ibillia. Bapo ibilli ziran! Ondo jan eta edan, ondo lo-egin ta... dan-dana iñok gertauta, norbera ezertarako arduratu bage. Aintxiñakoak esan eban lez: «Bustita jan».

Ibillalditik etxeratu ziranean, lenengo goizean, ixil-mixil jaiki zan senar gaztea ta etxea ziatz apaindu eban. Ondoren, gozari ederra gertau. Azpil zabal baten ganean jarri eban gozaria ta emazteari eroan oera.

—Ooo ene senartxu maitagarria —esan eutson emazteak—. Nabaitu zaitut lanean. Ba-dakizu zuk, lanak polito egiten. Milla esker laztana.

—Bai, ba-dakit, baiña gaur nik egin dodan lan au, ikasbidetzat izan dagizun egin dot, ta biartik aurrera zeuk egin bearko dozu, gure maitasuna eten ez daiten.

Ordago ederra bota eutson, e?

Nik lengo egunean irakurri neban «Hor dago» gatz bakoa baiño obea.

ABELETXE

Urrezko Luma 1972

Egun auetato larunbat baten, Donosti'ko idazlari yayu diran Pilar de Cuadra, Santiago Aizarna, Jorge G. Aranguren, Angel Garzia Ronda, ta Raul Gerra Garrido, batu ziran KOXKA jantokian. Auek artu zuten erabakia izan zan: «LA ENCRUCIJADA», Mikel Pelay Orozko'k idatzitako liburua saritzea.

Mikel Pelay Orozko ezagutu nuala, urteak dira, an Karakas uri aundi ta ederrean. Ez da oraingo ezaugarria! 35 urte igaro dira. Bere betiko arpegi alai ta irripar beteak, alako maitetasuna eskeintzen zigun. Gure Karakas'ko euskaldun etxe artan, geroztik ainbeste urtetan, makiñabat alkar-izketak egiñak gera.

Pelay Orozko ain lagunkor zanez, ez det uste areriyo aundirik izango dunik. Geroztik, euskaldunok, guda ondoren batera ta bestera ebilli giñanak, azkenik orain amar bat urte berriro geren txokora etorriaz. Olantxe berriro alkar ikusten giñan emen Donosti'n. Kalean zear alkartzen ba'giñan, legezko agurketak alkarri egin, ta bakoitza bere bidetik aurrera. Bai, Mikel aundiak une gutxi izaten du kalean iñorkin itzegiteko, beti laisterka... ta orrek askotan alako azkurea ematen ziran. Bein batez, berari esan nion: Baiñan Mikel, beti laisterka ebilli bear ote dek? Ez al daukak betik gelditzeko, ta zerbait lasaiago itzegiteko? Edo ta, lotsatu egiten ote aiz nerekin itz egiten?

Ene bada! erantzun ziran. Ez motel, ez dek orregatik. Guzia dek, kalera irtetze bakoitzean, beti batera edo besterako eginkizunak egin bearrean izaten naizelako baizik.

Nik berakin gogo biziz itzegin izaten det, sarritan joaten dalako Karakas'era, ta ango berri jakiteko gogo bizi aundia izaten detelako, jakiña, geiago entzun nai... Zerk eragintzen digu? Nere Karakas'ko ogei urteak ez diralako uste gabean aztutzen!

Pelay Orozko jaunak, onera eldu zanetik liburu batzuk idatzi ditu. Diotenez, azkenengoa, «La Encrucijada» ori da ederrena. Beintzat, besteen gañetik berari eman diote saria, URREZKO LUMA.

Jose Artetxe zanakin ta Basarri'kin oso lagun aundia izan da. Artetxe izana, il zala, aurki urte bete. Makiña alkarizketa egiñak dira irurak! Antz ematen diot nik, Artetxe bezela ez ote da izango aurrerantz. Orrenbeste idazteko gogoa dun gizonak beste biderik ez du.

Aspaldi idazten zun emengo asteroko ARGIA'n. Orain ordea, ez degu irakurtzen bere lanik. Ez beintzat euskeraz idatzita. Artetxe izanak, liburuak erderazkoak idatzi arren, gero beste lan asko euskeraz idatzi zitun, bai Argia'n, Aranzazu, edo beste abarretan.

Mikel'ek ere, bide berdiñean jarrai bear luke. Emen daukazu AGUR atxe gabekoa, ta uste det bertako zuzendariak pozik argitalduko lituzkela. Zer nai dezu Mikel, liburuak bakarrik idaztea?

Euskera galdu ez dedin, edo ta, daukan gaxotasuna okerrago gelditu ez dedin, nere ustez, biderik egokiena ori da, itzegin ta idatzi EUSKERAZ. Guk bezela, DEBALDE ta pozik gaiñera.

Askori entzun oi diot: «Oiek, euskelzale oiek, baldin bere idaz-lanari ordainketarik ez ba'lekioke ordainduko, ez luteke deutsik idatziko! Ori egia ote? Nik ez det uste beintzat.

Euskerak besterikako bidea dauka, maitatu ta gogo biziz laguntzea, utzirik alde batera «konplejuak». Euskerari laguntza aundiak eman oi dizkiote, naiz ta erderaz bere alde idatzi, naiz ta euskerazko lanak geiago balio. Ea ba, artu zure ain maite dezun luma ori ta idatzi euskeraz ere.

Egunontan izan degu Idazti Eguna, Jendetza aundiak joan ziran ta bakoitzak begiratu millaka liburu oieri. Nere pausoak, jakiña, ara joan ziran. Bereala ikusi nun zure «La Encrucijada» ori. Baiñan... 230 laurleko ordaintzeko, alako azkurea eman zidan. Garesti dalakoan nago ni. Liburu ederrak saltzen daude, baiñan bakoitzaren poltzikoak otzak egon oi dira erosteko.

Dana dala Mikel, artu zazu nere aldetik zorionik beroenak. Jarrai ortan, ta Artetxe izanaren antzera, zu ere gizon aundia izango zeralakoan nago ni. BEJONDEIZULA!

E. OZKIN

Alkar-Izketan

—Gaur, Peru, alkar-izketarako gairik bururatu barik etorri nok, euri be zerbait bururatuko yatalakoan itxaropenagaz.

—Neu be, beti lez, euk ekarriko eindun usteagaz egon nok, baiña besterik ezean, Yorrailla'ko Goiz-Argi *illeroko begikoan irakurri ñoazan gauza bakan batzuk buruan yoadazala etorri nok.*

—Zer izan dok ba?

—Iruña'n «Príncipe de Viana» *aldizkariak, Euskerea zabaltzeko eraskin bat argitaltzen yok, eta Pedro Artetxe bertsolariak bertso batzuk bialdu yoazan, eta bakoitzaren idazkerea aintzat artuko dabela esan arren, berak* atxe *barik bialdutako lana burutik oiñetara ainbeste naste sortu daben* atxez *beteta argitaldu. Berak ederto bertsoetan erantzuten yautsek: «Euskal idazlan bat egiteko ez det ibilten atxerik, nere ustetan ez dulako ekartzen kalte besterik Nik idatzirik ez nuan uste, era ortan ikusterik, txiroa baña garbia zana, zikin ta zorriz beterik».*

—Izan be, nor dok nor, iñoren lanak orraztuteko egillearen baimen barik?

—Zuzen ago. Ez yoat esango ori egin dabena lotsabakoa danik, baiña bai ori lotsabakoak egiten dabela. Gaur lotsea baiño yauntxokeria zabalago yabik eta edozer gauza ikusteak ez ñok arritzen.

—Ondiño ori baiño be arrigarriago doan beste gauza bat. Goiz-Argi'n *bertan irakurri yoat, norbaitek esan yokala, ikastoletako ikas-liburuak euskeratuta be, Ezikuntza ta Yakintza arduradunak Madrid'en ontzat ez dabela emongo.*

—Orixe ez yoat ziñestuten, guzurra izango dok-eta. Zer esango eunke guk euskeldunok erderazko idaztiak zelan idatzi bear diran agintzen asiko ba'gintsozak. Ze eskubide yaukuk guk geurea ez dan izkuntza baten zelan idatzi bear dan aginduteko? Zoratuta ete gagozan erantzungo lleuskieguk. Eta zuzen egongo litzakezak. Nor gozak gu iñoren baratzeko porruak zelan ipiñi bear diran aginduteko?

—Olan dok baiña, orren antzeko gauzak ikusteko mundu negargarri ta barregarri onetan urte askotan bizi bearrik ez yagok. Ta ontxe gomutetan nok indarkeria nagusi zanean Italia'n yazo zoanaz.

—Zer izan zoan?

—Ba, idazleen artean eztabaida sortu zoan Dante olerkari ospetsuaren yayoterria zala-ta. Batzuk, geyenak uste dabenez, Plorentzia'n yayo zala, ta beste batzuk ezetz. Eztabaida au amaitzeko bakik agintariak zer agindu yoan? Ba aurrerantzean Plorentzia'n ez zala yayo idaztea galerazo. Korapilloa azkatu bearrean ebagi ta kitu!

—Sator-lana egiten dabenak be olango gauzak esan eta egiten alegintzea ez dok arritzekoa.

—Baiña orduan, nozko, norentzako ta norako dozak ainbeste aitatzen diran gizonaren eskubideak?

—Nik ez yakiat, baiña ba'leitekek emen beti agotan *erabilli ta gero illargira eltzen goazanean betetako nonbait.*


—Ori be, yauntxokeri zaleak araiño eltzen ezpadozak!...

—Berandu dok eta gaurko naikoa izan dokala uste yoat. Agur, ba.

Agur, eta ondo ibilli!

URIGOITIA

Nere Eskola Lagunei



Irurogetaz ume baiño geixa izen ga eskolan. Danok jakin gendun eta dakigu euskeraz, bai, ta benetan ondo. Naitxe guardo-sobill seme izan, edo kontribuziño kobratzailliana, kinkailleruna edo paxiguena, danok eiñ eitxe gendun euskeraz...

Ta, oiñ...? Aiñbeste sakaka, aiñbeste gora-bera, aiñbeste «h» eta aiñbeste baiño geixako iñuzentekeri ibilliarren, asko gitxia euskeraz.

Zer da ba...? Ondo pentzau, lagun ona, ta bakoitxak ikusi ori, gure eskolako aldra ederrori. Danok bizi ga, Jaun Goikuari eskerrak, eta DANOK EUSKERAZ dakigu. Alkar ikusi eran; Zer dabik...? Akordet'az oin berrogei urte?... A zuan sasoie, e?...

Beti izan ga, ta izango ga, geu, orduko larogei umiok, gaur, bertoko larogei gizonak, EUSKERAZKO EUSKALDUNAK.

J. J. ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

EUSKALERRIKO IPUIÑAK

ORRATZONTZIKO SORGIÑAK

Bustintza'tar Errose'k eginda, eta Kerexeta'tar Jaime'ren ardurapean argitaratuta.

Lenagoko urteetan, «Bizkarra» baserrixean, abade bat bere arreba bategaz bizi zan. Abade arek, bere etxeko kutxa zaar baten orratzontzi bat ondo gorderik eukiten eban; eta berak, orratzontzi ari iñortxok be egundo ez egiola ikutu ta abar, esaten eragion beti.

A zala-ta, etxeko ta auzokoak (emakumeak batez be) orratzontzi miragarri aretan zer egon ete-zeitekean, buru-austez beterik ebizan.

Egun baten, abadeak bere arrebeari auxe esan eutsan

—Gaur Urkiola'ra noa, eta etxeko egitekoak ondo egiñaz, ia etxea ondo baiño obeto zaintzen dozun. Kortako abelgorriai be lantzean bein begiratu. Eta ni etxetik at nazan artean, or kutxa zaarrean gorderik dagoan orratzontziari ez egin, gero, ikuturik... goizetik gabera zoritzar gorriren bat leporatu ez dagizun be... kontuz!

Eta beste bagarik, abadea Urkiolagaiñera joan zan. Eta nebeak atzea emon orduko, arrebea kutxara begira jarri zan, bere kolkorako esaten ebala:

—Orratzontzi ori dala-ta, gure nebeak darabizan buru-austeak ez dira txikiak gero! Orrenbeste ardura ta buru-auste, zer dala-ta, baiña? Urrea, zidarra, ala arribitxi dirdiratsuen batzuk ete-dagoz bertan? Ontzi bakan orretan zer dagoan, berak bakarrik daki; ori, barriz, olan ez litzake izan bear: etxean zer dagoan, etxeko guztiak jakin bear leuke-ta; etxean bizi danak, gizonak naiz emakumeak, etxean zer dagoan jakitea gauzarik bidezkoena da-ta. Aiko-maikoetan beti ibilli bagarik, kutxa zaar ori, giltz andi onezaz edegi be egingo neuke... eta bertan zer dagoan ikusi be bai. Baiña, baiña... gure abadea zuurzuurra da-ta, jazorikoaren barri, bearbada, bereala jakingo leuke; besterik ezean, zer izan dan igarri egingo leuke-ta... Ene! Zer egin? Dana dala, onako buruausterik geiago ezin eroan daiket nik; neure osasuna zerbait maite ba'dot beintzat, miñutu baten be geiago ezin itxaron daiket.

Eta ori esanaz, neska jakingureak, kutxa edegita, orratzontzia eskuan artu eban. Eta orduan izan ziran izan ziranak, eta jazo ziran jazo ziranak!

Beste bagarik, orratzontzitik, sorgiñak taka-taka urteten asi ziran. Eta «zer eingu ta zer eingu» esanaz, sorgin batzuek neskeari oiñetatik oratu eutsoen, beste batzuek euskuetatik eta besteak samara zart egin eutsoen. Orduan, neskea estutu egin zan; eta negarrez asi ta esan eutseen:

—Lan egin gura ba'dozue, zoaze solora, eta beientzako bedarra ekarri egidazue ba...

Eta sorgiñok, bereala soloratuta, bedar guztiak beingo baten etxeratu ebezan.

Eta barriro be, neskearen inguruan ikotika asita, «zer eingu ta zer eingu» esaten egin eutsen; eta bakea izango ba'zan izan, arbiak ekartera solora bialdu bear izan ebazan; eta miñutu batzuen barruan, inguruetako arbi guztiak etxeko atartera ekarri ebezan. Eta orduan be «zer eingu ta zer eingu» esaten asi ziran.

Neska gaisoa, olako esturaldian negarrez ta uluka asi zan, bere inguruan ikotika ebizan sorgiñai zer agindu be ez ekiala. Alako baten, alan bearrik, bere zorionerako gauza bakan bat agintzea otu yakon.

—Zoaze errekara —esan eutsen— eta etxean bear dodan ura galbae onetan ekarri egidazue: gure etxean ur tantarik be ez dago-ta.

Eta sorgiñak, galbaea artuta, errekara joan ziran, eta ur-iretan zintzo-zintzo asi. Baiña, areik orretarako egiten eben dana, alper-alperrik zan: artzen eben ur guztia, lau oinkada emon orduko, galbaearen zuloetatik urtenda, lurrera yoakien-eta. Barriro be errekara joan eta barriro be axe bera jazo yaken: ezelan be urik ezin ekarri.

Orretan ziarduela, abadea, Urkiolagaiñean ederto igarota, tapa-tapa etxean sartu zan; eta bere arrebea negar baten aurkitu eban.

Zer jazo yakon itandu eutsanean, neskeak auxe erantzun eutsan:

—Orratzontzikoak sakabanatu dira... eta orain larri ta barregarri narabille... Ene!

Eta jazoriko guztia azaldu eutsan. Entzunikoaz, abadea asarratu egin zan, eta asarrez be asarrez esan eutsan:

—Jakingura petralak olakook! Orratzontzi orrezaz arduraz ibilteko ez dautsut esaten ba beti? Zuek lakoakaz, baiña, alperrik da... Eskerrak galbaeaz ura ekarten jarri dozuzalako; bestela, zure galdua: or zintzazan orratzontzian eurakaz batera...

Gero, abadea, orratzontzia artuta, errekara joan zan; eta bertan «latiñaro» bat esanda beste bagarik, sorgin guztiak beingo baten orratzontziratu ebazan; kanpoko argitan, «batxu» bera be geratzen ez zala...

ARRAINKETARAKO BAIMENA

Sasoi onetan, ainbat usansolotar gertatzen dira udabarri ta udako jolas edo kirolakaz euren atsegin-aldiak betetzeko. Eta jolas-bide guztien artean, arraiñetan egitea, ez da azken maillakoa izango.

Zenbat zentzundun gizon, baita gazte taldeak be ikusten diran amu-kaiñaberea bizkarrean dabela, bai Lekubaso'ko bidean ta ez gitxiago Urgoiti'rantz, Gumuzio'ko errekatzoak Ibaizabal'i agur egiten dautson tokira bidean.

Baiña jolas onek be, bere eragozpenak daukaz: Arraiñetan egiteko baimena bear. Ta gizon egiñentzat, baimen ori lortzea gatxa ez ba'da, ez da ostopo makala gure gaztediarentzat, eta batez be, or amaika urtetik amalau-amabost artekoentzat.

Euren gurasoak arraintzaleak ba'dira, ez dago eragozpenik, edo ba'lego be, inderbakoa; baiña besteentzat? Guraso maitekor baiña bildur diranak, zer jazoko ete jaken ibai ertzean euren umetxoeri, orreik, ez dautsee baietzkorik emongo baimen ori lortzeko. Beste batzuk, aitaren baimena bai, baiña berotasun andi barik, ta oneik zelan Bilbo'ra joan ta laguntza barik ango egin-bearrak bete?

Au edo bestea dala, sarritan arraintzan egin barik gelditu bear, edo ixillean ekin, onek daukazan arriskuak norberagan arturik. Gazte oneintzat, ta batez be, amabost urtetik berantz dagozenentzat, ezin ete leike erriko baimen bat naiko izan?

Ez dot uste asko eskatzea danik, eta ainbat gaztek eskertuko leukee (ziur nago) orlo onetan zerbait egingo ba'litzake.

Erriko gazte batek bere arraiñetarako baimena izateko, nire adizkide batek egin dautsoz joan-etorri guztiak, ta onen esanaz, mutil orren poztasun ta esker-ona ikusita, zerbait idatziteko, gora-bera onen alde, eskatu daust.

Or dago ba, ea laguntzarik aurkitzen dogun.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Gaurko Oldozkunak

Atzo «biar arte» esanaz, oeratu nintzan. Gaur ere biarko egunaren ametsetan bizi naiz. Biarkotasunaren atzetik bizi gerala, ezin ukatu. Desesperantzan —egun senti gabeko gau illunean preso— jausi diranak ez beste, denok biarkotasunari begira gabiltz eta diardugu.

Baiña gaurko munduan geien bat biarkotasuna ots-egiten dutenak marxismo-zaleak eta kristau-alderdiak dira. Biak biarko egun ederrago baten itxaropena ots-egiten digute. Arek lurrean eta materian takatzen dan itxaropen bat.

Kristau alderditik, denon artean egunik-egun obeagotu bear degun mundu ontako itxaropena ta, bien bitartean, oraingo mundu onen elburu osoa ta zorionekoa izango dan betiko betetasun baten itxaropena. Gure aurretik, eriotza menderatuz, betiko BIAR batera. Norbait —gure Buru zanez— pasa dalakoz, biotzetan poztu zaigun itxaropena. Gizon utsak, baiña gizonak geranez ere guztiz bearrezkoa zaigun itxaropena.

* * *

Igande gau triste bat egiña dugu Bilbo'ko Basurto'ko Gaxotegian. Kaleak zear, anbulanzi baten barruan iltzear zegon lagun bati lagunduz, bertara ginjoazenean, dena zirudin alai begien aurrean, ezker-eskubi, dena zen soiñu, argi, dantza, jan-edanketa goxo ta algara gogor.

Baiña gaxotegi aundi ta zarpiltsu artan sartu geranean, an zegon bizitzaren beste alderdi bat, nai ta naiezkoa, kendu eziñezkoa, gizonaren lurreko ibilleraren laburtasuna ta nekea ondo adierazten zuana. Gaxotegiaren atal batean takatu giñanean, an zegon gure zai eriotza, agonía, miña, milla eratako ondoeza.

Bein da bider betiko etorkizun baten bearra ikusi gendun. Eta nere lagun bati onela itzegin bear izan nion: Kalean, osasuna gaiñezka darabillena, errez arrotzen da eta arin dijoa bere burua jainkoztutzera. Belaunikatzea, otoitzegitea, kristau-siñismena aintzat artzea... parregarri derizkio.

Baiña osasuna, ogeitaka urteko sasoia, gorputz-maitasuna... bai laburrak izaki! Gau onetan ikusitakoa ikusita, Kristo'k ekarri digun mezua, berri ona t'azken gabeko bidea benetako poz eta itxaropen baten iturri ditugu... ta giza-bizitzari jomuga t'elburu bat emateko guztiz bearrezkoak.

Kristo ez ba'litz nik ontzat artuko nituzke zenbait abortu, zenbait eutanasia ta batzuren batzuk beren buruari ta besteenari emango lizkioteken tiroak.

* * *

1936 urteko mutil aiek

Ez ditut sekulan aaztuko. Ezin aaztu aien arpegiak eta pauso-otsak nere oroimena muiñ-muiñeraiño zulatu bai-zuten betirako.

Oraingo gaztedi ez bezelakoa zan ordukoa. Ez det bien arteko konparantzarik egin nai. Baiña ordukoaren nostaljia —sentimentala ba'da ere— ezin dut biotzetik kendu. Txapelgorri edo-ta gudari, batzuk eta besteak ameslari biurtu zitzaizkigun. Biotzak eraginda jokatu zuten. Bururaiño gaiñezkatu zitzaien biotza. Bai aberria, bai neskatilla, bai bakoitzak bere fedea biziki maitatzeko.

Gaztedi latza ordukoa. Bizitzak eta giroak bearturik ba'zan ere, gizarte-borrokarako gertu zegona. Gorputz zailduak, aienak! Bai mengoizaletasunerako, bai barautasunean irauteko, bai jolas gogorretarako ta bai kantuz gerrara joateko. Intxorta, Saibigain, Lemoitz, Sollube, Jata, Artxanda, t. a., gure gazte ederrak emandako odolarekin bustitako aaztu-eziñeko lurrak ditugu.

Orduko ametsak eta elburuak eziñezkoak izan zirala? Ainbeste gazte alperrik erre zirala? Erantzun beza bakoitzak bere erara. Baiña gaztedi aren kemena, garbitasuna ta leial izatea, ezin ukatu.

Arren! gaurko gazte orrek, etzazula geiago esan: «Gu emen azaldu arte ez da historiarik izan, gu gera lenengo ta gu gera lenengoak!»

Zure aurretik ezagutu ditugu amaikatxo. Izenak t'izanak aipatzea pozgarri izango al zaigu noizbait!

* * *

Bere burua ateotzat eta marxistatzat dadukan mediku batekin, lau orduko elkar-izketa, oso anaikorra, egiña dut. Giza bizitzan izan oi diren barne kezkarik sakonenak jira-biran erabilli eta aztertu ditugu. Bera siñesgabea eta ni siñesmendun agertu gara, eta bion artean ez da batere sekreturik izan.

Nire lagun ori, berekiko, guztiz zintzoa eta egizalea danez, gaur ez ba'da, biar, Egiaren jabe egingo dala biziki siñesten dut. Egi Oso ori niretzako Norbait delarik, gizon orren aurrean, Hipona'ko Agustiñ'ek entzun zituen berba aiek, Norbait orrek berriro ere esaten dituela uste dut: «Aurkitu ez ba'ninduzu, ez ziñake nire billa ibilliko».

Izketaldia aurrera zijoala, alako batean, aitorkuntza interesgarri bat atera zitzaion, ustekabean, nire lagunari. Bere seme-alaben zenbait jokaera aipatzen ziarduen. Aien jokaerak oso gaurkoak dira, alderdi guztietako askatasun bearra adierazten dutenak: sexua libratzea, erlijiotasuna apurtzea, familiaren loturak austea, iñoren agintaritzatik alde egitea, eta onelakoak.

Ala doaz nonbait nire lagunaren seme-alabak. Aien aitak ba ditu, orregatik, amaika kezka. Eta alako batean, bere seme baten historia —naiko naasia— esaten zidaneko unetxo batean, bere biotzaren barrenetik esan-nai aundiko aitorkuntza au irten zitzaion: «Erlijiorik ba'lute! Baiña ez dute, zoritxarrez!» Zertan zara, lagun?

* * *

Aurtengo maiatzako gauerdi bat zan. Gure lagun Bizar aundirekin egon bearra izanik, ordu bete bat alkarrekin egin degu. Bizar aundi ez da gizon segurua. Tren bat bezin zuzen eta bidetik ez dala ibiltzen esan nai det. Ba-ditu gorabera izugarriak eta bere gogoaldea ere oso balantzaka ikusi diot. Bere geldi-eziñezko pentsamentua ezin loturik zebillen eta, une berean, besarkada batekin eta zaplasteko batzuekin erantzun nezaiokean.

Irurogei miñutu aietan sail berdiñean iñolaz ere bildu ezin ditezkean gauzak entzun dizkiot:

«...Euskalerria salbatzeko egiñak gaituk... Kristo gabe ezin nauk bizi... Zertarako orrenbeste neke?

»...Neska zoro baten atsegiñak erosteko dirua ba-zeukat... Lagunak preso dauzkadala, ezin aaztu... Nazka... Otoitza... Ez nauk ezer, ez nauk iñor.

»...Nere amak ba'leki!... Erria zai zeukat. Emandako itza ezin burutik kendu... Baiña pekatuaren gozoa... Dirua laztantzen ari nauk. Diruak lotuko ez ba'nindu!... Noadin atsegiñetara.

»...Ez... Lagun zintzoak deitzen zidatek. Likits bat naizela, esan go ditek. Arrazoiz gaiñera... Or zegok aurrean eme ori. Txanpan da guzti, bai ederki!... Goazen emendik... Jesukristo nere Jauna».

* * *

Eta Bizar-aundi lotara joan zan. Ez dakit lorik egin ote zun.

Urrengo aldian oiñarri sendoagoen jabeago arkituko aldut. Egitasunean irmenago trinkotua. Ez orain aize batek eta, gero besteak balantzakatua.

ATARRE

Noiz Gure Artean

Erri bakoitzak bere izkuntzan eta bere gogo ta jakintzagaz aberastu bear dau gizadia. Euskaldunak ere ba-dogu geure gogo ta jakintza sakon bat. Eta berau beste erriai adierazoteko biderik egokiena, euskerea dogu. Bein baiño geiagotan erri txiki batzuek —katalanak-eta— teoloji-arazoak euren gogoagaz aberastuteko batzordeak sortu ditue.

Euskaldunok ere ba-dakigu, or-emen sakabanatuta ba-ditugula lekaide ta abade oso jakitunak teoloji jakintzan. Jakitun orreik zergaitik ez ete-dira alkartzen euskal teoloji bat egin eta indartuteko? Gure erria guztiz kristaua izan da, baiña kristau jakintzea azalduteko ez ditu argitaratu goi-jakituriz beteriko idaztiak. Ba-ditu bai kristau-ikasbidea azaltzeko egin diran idazti sakon ta ederrak, esate baterako Ibargutxi'tar Jon Kurutz'ek egiñak.

Baiña goi-teolojia azalduteko idaztirik ez dot ezagutzen. Teoloji-ikastetxe nagusietan ikaskuntza ori emoten daben euskaldunak irakasle jakitunak, zergaitik ez ditue bide orreik euskereagaz urratu ta lantzen? Au euskal siñestedunentzat edergarri aundia izango litzake.

Lenago gai orreik latiñez erabilten ziran, bai euskaldunak ere (Zubizarreta, Beraza Josulaguna ta abarreak). Baiña orain erri bakoitzak bere izkuntzan idatzi ta erabilten ditu. Zergaitik ainbeste gotzain, abade, ta lekaide eleizari emon dautsazan erri txiki ta aundi onek, ez?

Ez teoloji gaietan bakarrik, baita beste jakintza guztiak ere, euskeraz landuteko asarpenik ez dabe izan orain arte gure jakintsuak: Osagille, lege-gizon, injenieru, pilosopi-zale ta abarrek. Ba-dakit bide orreik euskeraz urratutea gauza gatxa dala asieran. Baiña bakoitza al-doguna egiten alegindu ko ba'giña, ondorengoak bidea leundu ta urratuta aurkituko leukie. Ta gure euskera maitea gorengo maillara elduko litzake. Bai, eta ludiko izkuntza landuetakoen batzarretan kukurruku ederto egingo leuke.

Gure eliz-jakintza ta gure erriaren siñismena —orain edozein sasi-jakitunek bere irriparre, esakera ausarti ta adarra joteagaz uxatu ta lorrinduten daben siñismena— zaindu ta indartuko leuke euskal-teoloji batzar orrek.

Gutxi garala diñoe,
baiña ba-gara aldra bat.
Azko izanik galtzen da,
ba'dira eurak epelak.
Batu gaitezan, gu, gutxi,
korapillo egin daigun.
Orrela gu ezin ausi;
beti garaille, txapeldun.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

NEURE ERRIA IKERTUZ

Sorterritik at bizi garanoi, atsegin izaten daku noizik-bein, norberaren erria ikertu ta, ikustea; atsegingarria izaten da bai, erria ikusiz erritarrak agurtu ta, biotz-gozamen maitagarriz ordu alkartsu, agurgarri batzuk bertan igarotzea, lengo eta oraingo albiste ta, barriak adizkide, lagun, ezagun artean oroipen gazi-gozoz barriro gogoratu ta, ausnartuz.

Gaurkoa begiztatuz ta, atzera, lenera, ioanean murgildu ta barruratzean, beingo batean oartzen gara, bai gizarte ta bai izadiaren lendik onako aldaketa arrigarri, nabarmenaz.

Gure bizi-izate, lenaldi ioan ori; gure umezaroko, gaztezaroko irudiz gogoan, biotzean irarria darabilgu, aldi illun-argi edota itxusi-eder baten biotz-argazki oroigarrietan betikotua.

Zein ez da oroitzen txikitako okerkeritxo ta iolas atsegin ta bizigarriakaz? Zein, gaztezaroko zorakeri merke ta, aldi artan igarotako egun itun ta alaiakaz? Zein, bere erriko kale, baso, mendi, zelai ta abar, bidegiro neketsu edota atsegiñez bizi izandako une ederrakaz? Zein, ez, izadi berezi baten egal ta margopean laukitutako maitegune, amets-lilluraz gatzitutako odol biziaren ikuskera ta, bideberako ezbear ta itxaropen galdu, ezetuakaz?

Norbearen amaren antzera, norberaren erria izan oi da, erririk biozgarri, erririk on ta, ederrena? Nik ala ustez, neure erriari, bere aundi-txikian, bere zabal-luzean maitasunez begiratzen dautsat ta, al dodan opor-une guztietan bertaratzen naiz. Gogoan izaten dot bai neure lengo ta oraingo Arteaga. Ta, goraldua arkituko dozue nire lenengo «Goiz Aize» ta, oraintsuko «Bidean Gora» olerki idaztietan. Ona emen Arteaga izenburuz azkenengoan azaltzen diran olerkiaren asikerako bertsoak:

Aurtzaroko arimapean sugar-berrituz bizitza,
araxe noa txustarrik-txustar, ioana orainduz;
araxe artedi, gaztañadi, landa, iitzarik iitza,
ibilbide zarretako egunik gurenak laztanduz.

Araxe neure biotzeko erri kutun, neure lenengo
argiratze, neure iaioterri eder, maite-maitera;
araxe Arteaga artetsu, neure gogo barrenengo
erietan erri, neure Bizkai bulartsuaren senera...

Bai norberaren erria da, zalantza barik, erririk eder, erririk maite, erririk bikain, polita... Ni oraintsu izan naiz bi iai-egunen oporbidez neure etxeko, erritarren artean, erria gozoro biotz-begiakaz laztanduz. Nik gogoan argazkituak, irarriak dodazan artedi, gaztañadi, arizti, pagodien oidez gaur, piñu baltzez iantzitako baso, mendiak arkituko dozuez, eztakit zori txar ala zori onez, baiña euskel-giro ta ikuspegi ederrean darrai... Antxe nintzala, udabarri zantzoz, kukuak ots egin eban, lugiñari «artoak eta ereiteko garaia zala adieraziz». Nik kukuaren abestia entzun bezin laster, siñiskeri zar baten oitura ta, eragiñez, zakeleratu nitun eskuak ia aldean dirurik ete neukan... Asko poztu nintzan dirua izateaz. Beraz aurten beti dirudun eta diru falta barik biziko naiz... Ez al da ori poza? Ona emen siñiskeritxu batek damoskun atsegin tentela!

Arteaga nire erri onek ikuspegi ederrak daukaz alde guztietatik begiratuta ta batez be gaztelu ospetsu baten iabe da, Atxerre ta Ereñozar mendien babesean basarri apalak nunnai ikusiko dozuez ta, emendik ez urrun Kortezubi'ko lurretan Santimamiñe koba-zulo entzutetsua. Egia esan emen ez dago danentzako ogibiderik ta orregaitik or dabiltz erritar asko itxasoak urratuz ta geiñontzekoak Ameriketako laterrietan ta abar, mundu guztian zabaldurik... Ta, erri txikietan gertatzen dana, izparrak, ioan-etorri, gertakizunak beingoan zabaldu, ta iakiten dira. Olantxe iakin dodaz barri batzuk ta batez be, Juanita Pepillo ezizenez ezagutzen gendun emakumearen eriotz aintzagarri ta atsegiña, baldin ba'da eriotz atsegiñik. Urteen aztunez ogeratua arkitzen zan 94 urtedun emakume kistar au, sendagilleak elizakoak artzea ona izango zala esan eutson ta baietz erantzun baiña, ez egun artan baizik sendatzen zanean. Sendagilleak egia azaldu eutson, ezeukala ordu askoko bizirik ta, zer uste dozue ikaratu zala gure emakumea? Bai, zera! An arkitzen zan loba bati txanpanik onena ekartzeko agindu eutson, ta, ogean iezarri ta etxeko ta sendagilleaz batera txanpana edan ta bere eriotza ospatu eban, sendagillea eskertuz egia esan eutsolako ta etxekoakaz batera agurtuz. Elizakoak artu ta ordu gitxira il zan. Eriotz eredugarri ta, ederra! G. B.

MUNIATEGI'TAR SABIN

«Etorki» Brasil'en

Jaso detan tarjetatxoa Rio de Janeiro'ko ikuskizun ezaguna da: Ttonttor batean balkoi bat eta, an bekaldean, itxas-bazterra ugartetxoaz tantoturik.

Izparringi batzuek ere jaso ditut. Irakurtzean, nere lenen pentsamentua auxe izan da. Erri batetzaz itzegiteko, gogora-arazteko, gudaketak bakarrik ez dirala bide, ez eta terrorismoa, onen zaleak gai onetaz guztia dirala uste izanagatik. Baizik eta kultura bideak, eta emen sartzen degu folklorea, ezagutu arazteko ezezik alkarri maitatzen asteko ere urrats-toki iaioenak dirala.

«Etorki» taldea joan zaietela-edo aitzaki artuta «Jornal do Brasil» eguneroko zabalak, Jorrailla'ren lenengoan orri oso bat, berezia, eskeintzen digu euskaldonoi. Euskalerria'ren kondaira ta euskaldunena aztertzen da. Zati bat bederik, ulerterrezena, euren izkuntzan dijoakizue: «Um pais de verdes montanhas, costa marítima, portos de pesca e estacoes balneárias; un povo (erri) orgulhoso e individualista, que ama a sua liberdade de uma maneira fanática; homéns e mulheres grandes e fortes, de olhos azuis ou verdes, de rostro magro e anguloso, assim sao os bascos, povo dos Piréneus, franceses ou espanhóis, que falam uma língua misteriosa, que se reuniram durante mil anos á sombra de um mesmo carvalho (zugaitza)...»

Ta dio, «Kondairan izan diran euskaldun aundieri begiratu bat eman ezkeroz, jantziko gera zerbait beren kulturaz eta beren izakeraz: euskaldunak ziran Loiola'ko Iñazio, Frantzizko Xabier Deuna, Pío Baroja, Unamuno...»

«Euskal kemen orrek berak, sortu zuan Josu'ren Lagundia, ludi modernoan izan zan eleiz-erakunderik indartsuena. Eta kemen orrek berak eraman zuan Frantzizko Xabier India'ra ta Japon'era, lenengoz Sarkaldea ta Sorkaldea alkar-izketa batean ipiñirik, bizitzak erakutsitako aditasunaren oiñarriaz».

«IX eunkira arte kristautasuna onartu nai ezik ibilli ondoren, azkenean ontzat artu ta ludiko erri erlijiosoena biurtu zan. Bizitzaren gertakizun guztiak euskeraz abestutako meza batez bukatzen dira. Gizon eta emakumeak, eleiz-atean, abestu ta dantzutu dira Jaungoikoa'ri eskerrak emanaz».

Guk berrikiago bizitu degun ixtoria ere aitatzen du. Gernika ta 1937'gnean ondatu zuan jazarra. Onetzaz dio: «Muito antes de se tornarem kristaos, os bascos reuniam-se alí, e tomavan suas decisoes debaizo de um carvalho sagrado».

Euskal emakumearen eta gizonaren izakera, ta sendiaganako maitasuna. Bale arraintzan zenbiltzan aintzin ura. Gure kiroltzaletasuna. Pentsa-moldeak. Eresia, gurean. Edertiarenganako zaletasuna. Auek eta beste zenbait doai gureak aztertzen ditu.

Baiñan gaurkoz buka dezadan. Idazkia luzetxo dijoakit. Ea urrengoan brasildarrak gugatik diotena, labur-zurrian bederik ematen dizuten.

UXOLA



ERRIETAKO BARRIAK

Bermeo

Ikastoletan kezkak ugari. Euskal ikastolak, kezka larrietan aurkitzen dira. Irakaskintzako Ministerioak atera ditun lagi barrieri eutsi egiteko, adoretsu izan bearko gara euskaldunok.

Erriko ikastoletan egin gendun batzarrean oso argi agertu zan, nola aurkitzen diran; eta beste orrenbeste jazotzen da besteakaz. Diruik eza lenbizi, gelak gitxi, ta maixu barriak ekarteko ume gitxi.

Zergaitik, amasei milla euskaldun direzen erri batean, berreun eta lau ume bakarrik ikastolan? Nere ustez, au arritzekoa da. Guraso batzuk adierazo dabe euren gogo ta biotz ona, baiña talde txiki batégaz nora elduko gara? Gure errian, beste askotan bezela, mingaiñetan errizaletasuna ugari erabiltzen da. Erria maitatu, ta norberaren izkuntzea, oiturak eta edestiakin aspertuta sakabanatu, ulertzekoa da au? Nere ustez ez.

Erri bat maitatzea ori baiño garrantzi aundiagoakoa da. Ez da bakarrik gora bat esatea ala eskupeko bat emotea laguntzeko, urte guztian ez ba'da bera ta bere gauzen alde jokatzen. Ta gitxien egin leikena, norberaren izkuntzea ta oiturak ikastea da. Egikizun au ez ba'dogu betetzen, geure erriaren izenik aitatutzeko eskubiderik be ez daukagu. Euskerazaleak, ekin daigun euskerearen alde!

Zabala'tar Zirilo bermeotar idazle ta gizon zintzoa zanak, bigarren idaztia argitaratzeko prest egoala, Jaunaren deia entzun eban. Gizon onen arazo guztia, bere erriaren alde idaztea izan zan. Lenengoan gure erriko edesti ta ezizen guztiak argitaratu zitun. Bi milla ezizen baiño geiago aurkitu zitun, eta danak gure errikoak. Lan onegaitik, Diputazioak bere babesean argitaratu eban idazti au. Orain, bigarrena, laguntasunaren premiñaz aurkitzen da, ta pozgarria izango litzake bemeotar zintzoa zanaren asmoak lortuko ba'litzakez.

Arraintzale errietan, aintziñatik dator, oitura bezela, jorraillean, orrillean eta bagillean ezkontzea. Esan leike, itxasoko arazoak eta irabaziak olantxe prestatzen diralako dala. Nik ere ola egin nitun, eta orain eldu jakoie sasoia nire lagun eta AGUR'eko arpidedun dirazen: Renteria'tar Jabi, ta Mendoza'tar Margari'ri.

Besarkada aundi bana eta zorionak luzaro!

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Mungia

Maietzaren amaika, egun indatsua izan da. Guztiok dakiguna da gari ogiagaz, bakarrik laguna ez dala bizi. Gizonaren bizitzan beste gauz ederrik, aski, dago: pentsabidea, maitasuna, jolasak, erti bidea...

Gure artean egun au, maitasunaren maitasunaz, lenengoz, gure umetedi ederra alkartzeko eguna izan genduan. Egun berezia, alaia, maitetsua. Ordu batak ostean, bederatzi txistularik, Madariaga'tar Gotzon'ek zuzendurik, bizitu eben jendearen egun artako giroa, «Alkate soiñua», egokitasunez adiraziz. Gure umeak, gero, Kristo'ri «gora gora» otska, Eleizara sartu ziran, Mungiar bezela euren burua Jainkoari eskeintzen. Aldara aurrean, zein gozo ta eder dan anaien alkartasuna, gogoz esan genduan. Ta bitartean, Goizaldi Iturregi, Jon Zorrozua ta Jaione Orue'k, geure euskal semetasua ta kristau bidean indartzeko Jainkoari eskatu eutsen.

Jarraian, Mezea asi zan. Gizonak egin leikean egitekorik aundiena, gizadiaren alde Kristoren bizia Aitari eskeiñi, ta egun onetan, eusko gizadiaren alde. Eskeintza ordua eldukeran, Josu Goitia ta Agurtzane Mallona'k eskari bereziak zuzendu eutsezan Jainkoari, Mungi'ko erriaren alde siñismen argia, maitasuna, jaubetasuna ta gaiñerako on guztiak eskaturik.

Meza guztia zan bizi ta gogotsua, parrokiko abes-batzagaz indarturik. Esterrak. Azkenean bertsolari bi saiatuziran. Lengoak legez, onek be, Jauna artu ebenetariko bi, Jon Elodui, mutiltxoa, ta Goizaldi Iturregi, neskatxoa. Umeak kantari, ta erri indartsua, pozez entzuten egi bizi-biziak maiteki.

Bizia ta poza, alkartasunean, izan ziran egun artako ezaugarriak Mungi'ko batzar saindu aretan. Mungiarrak, egun artako alkartasunean egon ziñen guztioi, zorionak! Ta baita erri guztiari be nire agurra damotset AGUR onen bidez.

Edertasun guzti au amaitukeran, «Agur Jauna»ren soiñura Eleizatik urten giñan, inguru guztia bete lagun. «Agur Jaunak, agur t'erdi».

IBIDE'TAR K

Segura

GURE MADURA.—*Berdiñgabeari egindako bertso zoragarriak entzun berria naiz eta nere onetik atera naute. Aiñ dira ederrak izan ere. Ona emen bat:*

«Tontor batean erri polit bat,
bere oiñetan Madura,
Bien artean ba-dute lore
sortatxo baten itxura;
zeiñen ederra dan ikustean
auxe datorkit burura:
Euskalerriko eguzkiaren
printza bat dala SEGURA».

Eta alaxe jarraitzen du. Erosi ezazu «Goyerri'ko lorak» izena duan Olea'ren liburua ta antxe irakurri ta ausnartu al izango dituzu gaiñerakoak. Eta gure Madura berdiñgabeari gogor eutsi bear diogu! Segura'ren pitxi eder-eder bat baita. Eta amaikatxoren ogibidea gaiñera.

OTZ ETA OTZ.—*Alaxe da. Udaberria negutu egin zakula ematen du. Aizkorrik ez du bere txapel txuria erantzi nai beiñepein-ta. Olakorik ez degula beiñere ezagutu esan nion batean, gure erriko agure xaar bati entzun nion, berak keixa gorriak elurretan beiñ ezagutu zituala gure errian. Arranetan! Ez oan orduan ere giro atsegiñik izango! Dana dala, betorkigu eguzki beroa lenbaitilen!*

MAYATZEKO LORAK.—*Izeneko elizkizun ederrak egiten dizkigute gure elizan, baiñan ez da geiegizkorik joan oi, zoritxarrez. Garai bateko joerarik ez da gaur ikusten gure artean. Elizara ez beintzat. Leengoak bai, zintzo asko jarraitzen dute, ta oraindik ba-dira aspaldiko oiturari eutsiaz elizakoa bukatu ta «Beeko Gurutz»era ikustalditxo bat egiten dutenak. Ez geyegi baiñan. Banaka batzuek ikusten ditugu.*

«ARTZAI-DEYA».—*Izendun orritxoak bialtzen dizkit norbaitek noizik beiñ. Eta oso pozik irakurri oi ditut. Saldias izeneko napar errixka bateko apaiz jaunak bere erritarrentzat illero argitaltzen ditu. Sei orrialde dira. Euskera eder-ederrean gaiñera. Ori baiño zaillagoa egin zigun Zesareo Elgarresta jaun langilleak, irratia, alegia; orrelakoxe zerbait gure errian egingo ba'liguke, a ze nolako mesedea guztiontzat!*

Emendikantxe deia bialtzen diot. Laguntzik ez genioke ukatuko.

JOANAK.—*Romana Telleria, andre elizakoi ta benetan ona bapateko eriotzaz. Beren atsekabean bere senar Balbino ta seme-alabei laguntzen diegu.*

Beasaiñ'en illberria degu, baita ere, erriko alaba Albina Imaz, gaxotasun luze baten ondoren, kristau eriotz eziñ ederragoakin aitu degunez. Gure dolumiñik biotzekoena bere senar, seme-alaba ta anai-arrebei. Zeruan gerta bitez! Otoitz bat, irakurle.

URREZKO EZTAYAK.—*Egin zizkigun Erruki-Etxe'ko mojatxo argi Millagros Ibarra aizpak. Berandutxo ba'da ere, zorionik beroenak bijoazkio. Berrogei ta amar urte Jainkoaren izenean beartsuei laguntzen. Aguro esaten da. Baiña pasa egin bear dira gero! Eskerrik asko ta zorionak!*

ANKA-MIÑA.—*Edo «ao-eria» deritzan gaitzari izugarrizko bildurra oi diote nekazariak eta ongi dakite zergaitik. Izan ere ondoren txarrak ekarri oi ditu. Kimu berriren bat sortu dalazkoa aitu det. Ingurumai ontan gaiñera. Baezpa ere, neurriak artzek ez luke batere kalterik egingo.*

Legez eginduta dagon txertaketa, udaberriudazkenekikoa, alegia, ez aztu; gaitz orrek ekarri lezazken kalteak ez dira nolanaikoak-eta.

MADURA-ZALE

Galdakano

JAKINTZA ETXEA.—Ainbat gauza egoki egin dabez azken aldian gure erri ontako udal-gizonak eta, benetan pozez goralduten doguz, ezetariko zuikeririk barik, gai ta egintza giza-bidezkoak norko edo norktzuk egin dabezan begiratu barik, askotzaz atsegiñago, yaku izan be ongarri diran eginkizunak goraldutea, utsune ta akatsak astinduten baiño, naita guztiz ziurrak izan oneik. Ori bai, eginkizun onak goralduteko dogun azkatasun bardiña nai genduke eginkizun okerrak edo naiezko akatsak astindu ta ezetuteko be, baiña bide ori ontzat artuten dabenak gitxi dira; ain da gaitza «neu errudun» autortzea. Iturburu onetik, jakin dogunez, udal-gizonak, errian Jakintza Etxea egiteko erabagitan artuta dabe, orretarako baiña, lenen beardana lurraldea, toki egokia, erriyaren erdi xamarrean da, nai-ta oraindik toki zabal asko izan gure erri ontan, lurraldegarestiak dira eurok. Dala batera edo bestera erri-agintariak gertu ei dagoz bear-bearreko dogun Jakintza Etxe ori loitzeko ta urte asko baiño lenago beren egintzea egi sortuko da; eztago esan bearrik gure txaloak eurekaz izango dabezala.

Oraindik, jakiña, ez dakie zelangoa izango dan, baiña orraitio ba-dakie arek izango dabezan gauza egoki batzuk beintzat; esate baterako erriko idaztitegia bertan izango da; areto apain andi baten, itzaldi ta beste jakintzazko erakusketa bearreko asko ospatuteko. Erriko jakintza-bazkun guztiak bertan izango ei-dabe leku ta abar. Eta beste baterako zerbait geyagoren jakitun garen geure irakurleai azalduteko.

ERIOTZA.—Jorrailla'n 27'gnean il zan Basauri'n, bertako seme jatorra izan zana izanbe, Aranburu'tar Josu 37 urtedun gizon gaztea, emazte lirain ta alabatxu eder bi itxita.

Josu, basauritarra zan da bertan bizi zan, baiña sarri be sarri Galdakano'n egoan, emengoa izanik bere emazte Agirre'tar Jone emakume euskeltzalea Goyan Bego adizkide ona, ta laguntzen dautsegue atsekabean bere sendiki guztiei.

BIOTZ - GAZTEA'KOAI.—Orain egun batzuk artu neban Santurtze'ko Biotz-Gaztea Alkarte'ko mendigoizalen zintzo batek, Heredia'tar Pernan'ek, idatzitako eskutitza ta, beste izpar atsegingarri askoren artean au dirausku: Zeuk AGUR'en (Katalandar Mendizaleak eta gu «idazpurutzat dala idatzi neban AGUR'en 30'gn zenbakian) idatzi zenduan, gitxienez be eusko mendigoizaleak euren idazki ta mendi-txartelak euzkeraz eta erderaz idatzi bear leukezala ta abar, aintzakotzat artuta ara emen zelan euzkeraz eta gazteleraz idatzi doguzan geure mendiko txartelak «Eta mendi-txartel polit bat bidaldu daust euzkera garbi txukunez eta gazteleraz idatzita, ta esaten: «zorionez ez-gara gu bakarrik orretara asi garanak, beste ainbat bazkun be orretara euren txartelak idatziten asiak dira».

Eskerrak «Biotz-Gaztea»ko euzko seme jatorrok, eta zeurok legez jokabide bardiña darabillen guztiai be, gure izkuntza bardingabeagaitik zerbait egiten dozuelako. Noiz egingo dabe beste orrenbeste gure Ganguren, Baskonia, Padura ta abar eta abarrek?

LENENGO JAUNA ARTZEA.—Orrilla'ren batean, ospatu zan Galdakano'ko txadon guztietan umetxuen lenengo Jauna-artzea. Eta beraz, naita eguraldi euritsua, zikiña egin, egun alaya umetxoentzat, ta euron guraso ta sendikide guztientzat be. Eundik gora izan ziran ertxadon nagusian lenengo Jauna-artze ori egin ebenak; talde bitan, lenen gazteleraz egin nai ebenak eta urren, amaika ta erdietan euskeraz egin nai ebenak, ogei ta bat neska-mutil pozpolin eurok, eliza guztia notiñez beterik zala. Ume euskaldun geiago ikusi nai gendun baiña, tira; ordua da galdakanotarrak! euskeraganako dagon lozorroa jaurtiteko.

Bengoetxe'ko txadontxuan barriz, berrogei ta bosten batek egin eban Jauna-artzea, danak gazteleraz, iñork ez-ebelako eskatu euskeraz egiteko. Ikusten danez bengoetxetarrentzat ezta oraindik udabarria eldu, negu baltzean aurkitzen dira, erdel laiño «dizdiratsuak» zorabiotuta. Erriko beste txadonetan be ospatu ziran lenengo Jauna-artzeak, baiña orrein barri ba litzake besten batek emotea.

BASA-JAUN

Arratia

URIARTE - URIA'TAR JULENTXU'RI.—Ene lobatxo: Emen nozu bizkarazurra otzikaraz, biotza oiñazez, oiñetatik bururaiño atsekabez.

Lenen aldiz Jaunartzea egin dozun egunean, oraindik zuriz jantzirik izango zaranean, lantxo au biribilduten diardudanean, Euskalerria baltzitu dozu Jaunartzeakin batean.

Zuretzat egun gogoangarria dan egunа ospatuteko bialdu dauskuzuzan opiltxo gozo-gozoak, ondoren garratzekoak niretzat. Zelan eta nolan ausartu izan zara erderaz egiña izan dan jaunartzeoroigarria maite-maite zaitun osaba oni bialtzen, ixeka ta adar-jotea egiten; auzokoen izkuntza indartsuaren aurrean txapela kendu, makurtu ta laztanak egiten... geurea oinperatuten?

Esan aita-amari, arren, AGUR au jasoko dozunean, don Marzelo'ren garai edo aldi artako zigor-eraztunik gaur egun ez dogularik, ondo ta obe izango litzakigula euskalkeriaren tokia euskaltasunari eskeindu ta emotea. Biderik asko ta zabalak doguz Erriaren aldezko iraultza bakezkoak egiteko, baiña lo-bedarren saldeakin aziak eta eziak dirudigu.

Mingaiña txillin-txalari, biotza lozorro sakonenean, egiteko egiteetan labur eta motz... euskal izatea katu-korotz.

SAN ANTON ZALE.—Diran Bilbo'ko euskaldunentzat au. Amabietako euskalmezatatik urteeran, begiratu egizue, arretaz, ezker-eskumara, beeko ate inguruetan, antxe izaten da, ba, iganderik geienetan, euskerearen eta euskerazaleen etsai-arerio amorraturik amorratuena. Beti bakarti ta igeskor, basa-pizti ezi bageen antzera.

Ordu batetan izaten dan erdel-mezaren zain egoten da, ta lentxoago batean, gogorik onenez agurtu ondoren, erantzun au entzun bearrean izan nintzan, erderaz: «Emen alkartu bearrean, ez daukazuez zeuoen parrokiak, eleiza au kiratsez betetzen diarduzue-ta?»

Dima'ko semea dogu izenik barik aitatu dodan morroia.

LANDAJUELA'TAR A.

Zestua

Joan zan aste-santuko sermoietan, Gotzon Garate aita mintzatu zitzaigun. Elizkizun guzietan, eliza beterik, arratsaldekoan batez ere.

Gotzon goxo ta jakintsua da; bere itzaldiak, oso-gogoko izan genituan. Itzaldiak lendabizi euskeraz asiaz eman zizkigun, gero gazteleraz, ta berriro euskeraz amaitu.

Gotzon'ek zer euskera erabilli zuan? Neretzat, euskera errikoia beintza. Eta ez dut uste iñortxo, Gotzon'en itzaldiak ulertu gabe, gelditu zanik.

Adiskide Gotzon, galdera bat zuzendu nai dizut. Alegia, Marx'eri buruz, bigarren idaztia argitaratu duzun euskeragaz mintzatu ba'ziña, zure itzaldiak zenbat entzulek, ulertuko zituan? Neretzat, euskera «batu» izeneko ortan ulertuko zutenak, gutxi izango ziran. Agian, 100'dik 15'ek? Eta eliza betetzen zutenak ia danak, au da: 100'dik 98, euskaldunak giñan, eta aunitz baserritarrak gaiñera.

Zuk idatzitako bi idaztiak etxean ditut, eta irakurri nituan. Leenengoa zuk diozun antzo, askotaz errikoiagoa, baiña bigarrena, askotaz biurriago ta traketsagoa da. «Teknika» ta euskera batuaren arazoan ez dut sartu nai, esan nai dutena, auxen da: zure irugarren idaztiaren zai gaudenez, arren erriari begira idatzi zazula; alegia, EUSKERA jatorrean, danok errax ulertzeko eran, bai kaletarrak eta baserritarrak, gaia garrantzizkoa danez, danok sakon ulertzea komeni da.

Zestua'n zure itzaldi suspergarriak, ulertu giñuzan gixan, eta ziur egon ziñeke, demokraziarekin edo onek eskatzen duan araua betetzan duzula.

Euskeraren indarra ta batasuna, bide ontatik dator; zenbat eta geiago irakurtzea ta mintzatzea, auxen izango dugu, biderik zuzenena. Bizkaitarrak idatzi bezate beren erara. Naparrak eta Arabarrak ere bai. Eta Laburdi ta Zuberotarrak, saia bitez euskera indartzen, eta errikideak esnatzen. Gure izkuntzaren etsairik latzenak, Prantzeera ta Gaztelani izkuntzak bait'dira.

JOSEBA

Euskal Erriko gizon ospetsuak

Gotzon Urrutia

Nabarniz, Gernika'ko auzo bat dala gaur, esan dit Gotzon'ek. Ain zuzen, Gotzon, bertan jaioa degu. Orain berriz, Tolosa'n bizi da. Tolosa'n beraz, eduki nun berarekin emen azalduko den alkar-izketa au.

R.—Gotzon, zurekin alkar-izketa bat moldatu nai nuke AGUR'en azaldu al izateko.

G.—Ori besterik ez ba'da, nai dezunean asiko gera.

R.—Nere asmoa, Euskalerriko gizon ospetsuen bizitza aztertzea izaten da. Beraz, gogo onez ikusten dut, prest arkitzen zerala nere galderen erantzuna emateko. Zure asieraz, zertxo bat jakin nai nuke.

G.—Begira, amaika urte nitualarik, Balmaseda'ko seminario edo ikastetxera joan nintzan, apaizgintzarako prestatzera latiñezko saillean, latiña ikastera esan nai det alegia. Bertatik Segobia'ra joan nintzan, lekaide eskeintza ta filosofiako ikastaroa amaitzera. Bertan iru urte igaro ondoren, Santo Domingo de La Calzada'runtz irte nintzan; emen berriz, amaika urtean teolojia ikasi ta amaitu arteraiño egon nitzan. 1914'gn urtean Aranda de Duero'n egin nintzan apaiz edo lekaide.

R.—Ikusten det, atzerrian, leku askotan izan zerala, ta gaiñera denbora luze xamarrean. Ez al zitzaizun euskera aztu; Euskelerriko griña galdu?

G.—Nabarniz'en, nere etxean, beti egiten gendun euskeraz, bertan arkitzen nuelarik zaletasun aundia, euskal giroari buruz. Beraz, nere etxean ikasitako griña ura, nola nai ere, ezin aztu izan oi dut. Gaiñera naiz atzerrian egon, saiatu nintzan euskal arazoaz eta giroagaz zerbait irakurten. Geien Arturo Campion'i irakurri nion, bere lanagaz ondo jabetu ta aztertu arteraiño. Bertan, euskerari begiratuaz, ikusten nuan euskerak, bere zailtasun aundiena aditzean zuela. Ortaz oartu ondoren eta lau illabeteko lanaren ordaiñez, liburu bat argitaratu nuen: «El verbo euskériko» izen buruakin.

Arratsalde bat da. Gotzon'en lan toki edo gelan ari gera izketan. Liburu asko ditu Gotzon'ek. Mai gaiñean, paper batzuk eta idazteko tresna edo makiña. Zenbait argibide eskatzen diotenean, txistua jotzen du, ta liburutegian arkitzen diran liburuak nasten ditu. Umore onekoa dela dirudi.

R.—Len esandako liburu ortaz gaiñera, besten bat argitaratu al dezu?

G.—Nik, geien, itzaldiak ematen ibillia naiz, orrekin ez det esan nai, ez detala idatzi. Nere lan batzuk aldizkari batzutan argitaratzen ziran. Baiña liburu bezela, len aipatutakoa ta beste liburuxka bat: «Apaiza ta egia».

R.—Zure lanak, batez ere, erlijio arazoaz egiñak al dituzu?


G.—Len esan dizuten bezela, nik itzaldi asko emanak ditut; bi gai berezi erabilliaz: euskera ta erlijioa. Erlijio aldetik, teolojiko irakasle bezela, baita ere apaizen aurrean; gerratean Jainkotzaz ere mintzatua naiz. Euskeran alde ere eman ditut. Gogoratzen naiz, nere itzaldi batek, zarata aundia sortu zula, eztabaida ugari alegia, itzaldi orren gaia auxe zan: «Zer egiten du eleizak, euskeraren alde?» Itzaldi au bide zelarik, Eijo y Garay, orduan Bizkai'ko gotzaia, bere aurrean salatu ninduten.

R.—Zure lanak, zein aldizkari edo izparringietan ikusi dute argia?

G.—Nere asieran, nere lanak «Euskerea» deritzaion aldizkarira bidaltzen nitun, baita ere, bidali izan oi ditut «Euzko Gogoa» ta «Zeruko Argia»ra.

R.—Lekaide aldetik, ze motako egikizunak lortzen zenitun?

G.—Lekaide-etxeko zuzendari edo nagusi egon nintzan iru urteren buruan Jaen'en. Gerra berriz, Asturias'en arkitu nuen. Errepublika garaiean Paris aldean nintzan. Bertako Euskal-Etxe bazkunean, euskal-giro bat sortu gendun, itzaldi batzuk emanaz, abestuaz eta abar. Azkenik, Inglaterra'n igaro ditut ogei ta amabi urte.



R.—Ogeita amabi urte aberritik urruti arkitzea, ez da txantxetako gauza. Naigabe aundia sortuko zitzaizun ba-da erria ikusi gabetanik, ainbeste denboran itxarotea?

G.—Alaxe da bai. Baiñan barruan sentitzen nuen griñak, bultza arazten zidan zerbait egitera, Euskalerriagaitik egitera, naiz eta bertatik urrun arkitu. Orrela asi nintzan, BBC irratiaren bidez, itzaldi batzuk eskeintzen euskeraz.

R.—Ze motako gaiak erabiltzen zenitun zure itzaldietan?

G.—Danetik nastuta, batetik euskal giroagaz, bestetik kritika berezi batzuk bidaliz, Hamlet, Shakespeare'n lanak aztertuaz eta abar.

R.—Berriro aberrira biurtzean, ze lan egin duzu?

G.—Lengo erara jarraituz, Euskera ta erlijioa lantzen saiatzen naiz, alde batetik itzaldiak, bestetik AGUR'era bidaliaz nere lan batzuk...

R.—Zergaitik AGUR'era?

G.—Nere iritzi apalean, bakoitzak landu bear du EUSKERA, ez indarrez, ez gogorkeriz, baizik argitasunaren bidetik. Beraz AGUR bide ortatik dijoalako, bidaltzen ditut bertara nere lanak.

Illunabarra. Alkar-izketari bukaera eman diogu. Ona emen Euskalerriko gizon bat. Erritik urrun ibillia izanagaitik ere, ez du galdu euskaldun nortasuna. Eredu ederra ta bikaiña, Euskelarrian bizi izan eta bertako arazoaz urruti dabillenarentzat.

Lekaide etxetik irten naiz, egualdi otza da, eudi pitin bat erortzen asi da. Enparantzan bi uso zebiltzan jolasean. Beren albotik pasa naizenean, egoak astinduz zeru aldera iges egin dute.

RAMON ZAPIRAIN

Filolojiazko jardunak IX

Gora - Bera ta Estuasunak

Ez zan erosoa «Institut»eko giroa. Mosen Alcover oso mindurik zegon Rovira i Virgili ta Gabriel Alomar'ek egiten zizkioten destaiñaz.

Prat de la Riba bizi zalarik asarre ta ekaitzak lertu gabe aienatzen ziran baiñan ura ildakoan eztanda egingo zuten.

Bestalde, Alcover'ek ez zion Ortografiari ajola geiegirik ematen eta berekoia zanez eta Akademiaren buruzagi, aren iritziak aurrera atera nai izan zituan, beti, lagunei jaramonik egiteke.

Eztabaidak errez sortzen ziran Fabra eta Alcover eta Griera'ren artean. Esan zagun, bidenabar, azken onek euskerari buruz txorakeri asko idatzirik dauzkala; eta baita Mitxelena'k ez jakiñari astialdi ederrik eman ere. Prat de la Riba il da gero, 1918 inguruan, Alcover Fabra'ren arauen kontrako asmoak agertzen asi zan, Institut zalakoaren legez artuak ez ziralako izan.

Au dala-ta oso asarretu zan Puig y Caldafach'ekin eta Diputazio'ko arasa eta apaletan gorderik zeuzkan paper eta agiri guziak arturik Mallorka'runtz eraman zituan. Emengo adiskideen laguntzaz agiri bat zuzendu zuten katalanzale guzientzat. Auen artean, Barnils, Griega, eta Montoliu Alcover'ekin zeudela ez dago aitatu bearrik.

Orduan aspaldidanik zerabilkian asmoa KATALAN-MALLORKITAR eta VALENTZIA'ko Izkuntzen IZTEGIA bururatzea otu zitzaion. Txarrena, izan zan politika itxura ta usaia eman ziola. Madrid'eko Gobiernoari argitaratzeko laguntza eskatuaz. Eskabidea bai Madrid'eko Kongresoak eta baita ere Errege-Jauregiak eta agintzariak ontzat artu ta arduratu ziran. Estadu'ko dirutik 25.000 pesetas eman zizkioten. Eta onela Alcover'ek 1926 urtean lenengo orrialde-sailla argitaratu al izan zuan. 1927'gnean azaldu zan bigarrena. Eta pot!... Baiñan asmo zipotz arrek gorroto ta asarrea sortu zituan katalanzale leialen artean. Ez zuten baezpako IZTEGI nastu ura anitzat artzen. Are gutxiago zeiñen eskutik zetorrela ikusirik. Batetik diktadura peko zitua zala eta bestetik ortografia zarkituan eta arau gabekoa.

Zorionez, politika aldaketak aurki gertatu ziran eta giro-aldaketaz Fabra eta Alcover berriro eta aldi baterako adiskidetu ziran.

Alako biotz aundikoa bait genuen Fabra! Baiñan naigabeturik zebillen Institut'eko arazoak berak nai bezela ez zijoazelako. Ez gutxiago Alcover'en ustegabeko aterakaiak zirala-ta... Eta azkenik Eujenio d'Ors, «*Xenius*»en saldukeria ta traizioa gertatu zalarik... katalaneraz «*desfenetracio*» deitua. Alegia, Puig i Caldafach'ek «*Xenius*» irudiz leiotik bera jaurtitze ura!

Institut'zanak eta Fabra'k eragozpen eta estuasunak ikusi zituzten urte aietan. Universidad'eko izkuntza maisutza galdu zuan. Pompeu'k ordea ez zuan bururik galtzen eta giro ta geiago ezagutu ta maitatua zan Cataluny'ako errialde osoan. Bere lanari zerraikion liburu berriak agertu araziaz.

Guzia goibel izan ez zedin, Primo de Ribera'k politikaz, naski eta Alfonso XIII erregearen asmoz «Akademia Española de la Lengua»ren baitan katalan, gallego ta euskera izkuntzetoki ematea erabaki zuten. Lau alki katalan izkuntzalarientzat izango ziran; bi gallego ta beste bi euskaldunentzat. Auek Azkue eta Urkixo jaunek bete zituztela guziok dakigu.

Katalanetatik Fabra izendatua izan zan baiñan ez zuan alkirik berotu nai izan. Bere ern ta etxean bakarrik lanegitea atsegiñago zitzaion.

Eta era ontan ekin zion «*Diccionari General de la Lengua Catalana*» Cambo'k laguntza osoa eskeñi ziolarik. Zaspi urte buruan gaur «*Diccionari Fabra*» deitua bukaturik zeukan... Irurogei urteurrena ospatze arren omenaldi bat egin zioten. Eta urte artan bertan, 1928, Paris'en agertu zan bere: «*Abregé de Grammaire catalane*». Urrengoan «*Compendio de Gramatica catalana*» (Barna 1929). Eta arrezkero beste lan asko, «*Converse Filologuiques*» abar eta abar. «*Diccionari*» aundia, oso-osorik ez zan agertu 1932'garren urte arteraiño. Ain zuzen «*La Renaixenca*» ernealdia asi zanetik Eungarren urteurrenean (1832-1932).

Errepublika etorritakoan Fabra'k bai Universidade eta bai Institut'ean lanean jarrai al izan zuan lasaiki.

Katalan-izkuntzaren irakasleak gertutzea jotzen zuan lanik bearreskoena bezela. Ortografiaren auzi ta eztabaidak eztitzen joan ziran, eta Fabra'ren gogoa zanez ez garaillerik ez garaiturik ezagututzeke.

Ala aitortu zuan Francesc Matheu egoskorrak. 1934 urtean Badalona'n beste omenaldijai bat opa zioten Fabra'ri eta izen ontako SARIA iraikita gelditu zan... Ez jakin noiz arte!... Ez zuan politika arazoetan muturrik sartu nai izaten. Bere bizimodu apalean, egunero tranbian joanez, Institut eta Universidad'eko lanean ziardun ...Katalan Izkuntza an sartu ta tinkatzea zan aren kezka ta oni opa zizkion alegin guziak.

ANTONIO M.ª LABAYEN

Gaon Judutarra Tolosa'n

Askotan esan oi da tolosarrak judutar au il zutela gure errian. Bai, egia da, bañan guzia esan bear da. Gure erritarrak eta Gipuzkoa'ko seme guziak urtero beren Jaunari ordaindu bear ziotena Batzar Nagusiak erabakitzen zuen. Bañan egun artan Gaon judutari, gutarrak diruak ordaintzera beartuak ez ziran, Batzarrak agindu ez zuelako. Eta judutar au arrokeriz beteta erabaki ez zan dirua indarrez eskatzen asi zan. Bereala erri guziak erantzun zion Batzarrak ordainketa ori ez zuela erabaki eta orregaitik ordaindu bear ez zutela. Bañan Gaon jaun ori indarka eta guziak joka asi zan. Orduan erri guzia beraren aurka edo kontra ekiñaz naspillatu eta azkenik zalaparta artan, ez dakigu nork jota, ilda erori zan.

Egun ortan bertan Enrique IV'a Ondarrabi'tik Gazteiz'a edo Vitori'ra zijoala Tolosa'ko iskanbilla ikustean galdetu zuan Gaon'ek eskatzen zuena ea Gipuzkoa'ko Batzarrak erabakia ote zan ala ez. Orduan erantzun zioten Batzar orrek ez zuela ordainketa ori erabaki eta argatik Erregeak ilketa ori ontzat eman zuan iñor zigortu gabe eta esanaz Batzarra bera zala orrelako ordainketa erabaki bear zuena eta iltzalleai barkatu zien, esanaz beste erri guziak ere emen gertatu zana ondo gogoan artzeko, gizon orrek eskubiderik ez zuelako.

Au guzia garbi agertzen da Erregearekin zetorren Garibay edestilari edo kondairagilleak, guziak orrela jakin dezaten, esaten digulako.

LOPEZ MENDIZABAL'DAR IXAKA

Aragi - Uztea

Garizuma igaro berria dugu. Orregatik, garizumari buruz zerbait mintzatzea, ongi dagola iruditzen zait. Donegun batean, jai-aldi bat zan, egun aundi guzietan gertatzen dana, otoruntz ta guzti. Baiña ara, nundik-nora gertakuntz ta jai-aldi ori, aiñ zuzen garizumako ostiral batean eldu omen zan.

Egun ontan dakigun bezela aragiuzte ta barau eguna da. Jai onen antolatzailleak, oso kristau onak ziran, otordura zatoztenak antzo; itz batean: Kristau jatorrak!

Auek garrantzizko arazoa zala ikusirik, gogotik estutu ziran, ta beren artean pentsatzen zuten: aragi-errerrik eta aragi-saltxarik gabeko, bazkari aundirik egin al liteke? Zer egiñ bear dugu? Bazkaria ezetutzerik ez dago; Baimenberezia eskatzea, giza-bidez jokatzea etzan, baiña, ala ta guztiz ere, jai-aldia eratu zuten.

Antolatzailleak —oso kristau onak— sei edo zazpi janariko, jaki-zerrenda eskeiñi zuten. Abakondo ta arrokerizkoleatz garesti etabar... Beren eguna beteaz, danak pozik eta alaitasunez gaiñezka, eguna ospatu zuten. Ta jakiña, gizon aiek, aberatsentzat penitentzi-era asmaturik, danak lasaitu ziran.

Nekabidea gizadi ta erlijioaren sustraia danez, ezin genezake ezeztu. Agian, gaur egun, zenbait jokabide nekegarriak ez du zentzurik. Penitentzia, gaur bizigeran egunerako girotu egin bear dugu.

Adibidez: danakin eta aur txiki ta «pelmakin», atsegiñ izaten, alegiñak egin. Zure bearra duen guziei, lagundu. Zure seme-alaben nortasunari, begirunez begiraturik, leengo aldi ta garaiak aldatu dirala, ulertzen saiatu.

Zure gazte-garaia gogoratzen alegiñak egin, eta beren arazotaz kezkatu. seme-alabei galderak zuzendu. Otordu onak ematen duan atsegiña, txarra ezdalarik, jateari bakarri ederretsitzea gizadiaren zentzugabekeria dala pentsatu.

Eskupentsu gutxiago egin, eta bakoitzaren aberastasunetik geiago banatu. Axular maitagarriak diño: «Gizon batzuk bizitzetik gelditu bear duanean, bizitzen asten dira. Eta miretsikoagoa esango dizuet: Beste batzuk bizitzen asi baiño leen, bizitzetik gelditzen dira. Gazte ziñanean, gazte antzo ibilli ziñan, zaartzerakoan, zainduko ziñala pentsatuaz, berak uste baiño leen, gizona zaartzen da».

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

AGVR

III URTEA
41 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - BAGILLA - 3

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

EUROPA'RA

Gizonok gizartean eta gizarterako egiñak gara.

Umea, maitasunaren seme lez, gizartean jaioten da eta gizarte barik bere izatea aurrera eroateko be ez da gai. Zartzaroan barriro gizartearen laguntza berezia bear izaten dogu. Eta, gure bizitza guztian, gizartean izan ezik, ezin bizi izango geintekez.

Gogo ta soin, gure izaera guztiak gizartea eskatzen dau. Itz egiten ba'dogu iñorentzat izaten da, entzumena ba' dogu iñorena entzuteko da, ikusmena be geuretzat bakarrik ez da...

Eta lenen, berez, aurkitu dogun gizartetxua sendia izan dogu. Antxe aurkitu dogu maitasun beroa, antxe jakintzaren lenengo zusterrak, antxe janari egokia ta laguntza bearrezkoa.

Baiña sendiak berak bakarrik ezin bere zeregiña bete izan dau. Alkarte ori txikiegia izan da, eta sendiak be alkartu egin bear izan dabe. Onelan erriak osotu dira: sendien alkarteak. Alkartze onetatik egin-bear ugariagoak sortu dira, baiña baita laguntza bearrezkoak be.

Egin bear ugariagoak: bideak, ura, argia, agintaritzea...

Laguntza bearrezkoak: ikastolak eta irakasleak, alkar lanetarako alkartasuna.

* * *

Sendia baiño bazkunak aziagoak izan arren erriak be ez zirak euren eginbearrak batetako gai. Eta erriak be alkartu egin ziran eta aberria sortu zan. Erriak aberrietan batuak agertzen dira edo batzen dira.

Aberriak ba'ditu batzeko bere oiñarri bereziak: kondairea, izkuntzea, lurraldea, endea, erlejiñoa... Oiñarri guztiak edo euretarik batzuk beintzat, izaten dabez aberriak.

Eta oiñarri berezi orreik izanik, aberritarrak, erritarren eta sendikoen antzera, euren maitasun berezia izaten dabe, odoletik eta alkar-bizitzatik sortzen dan maitasuna. Norberekeria itzi eta aberriaren alde egitera bultzatzen gaitu maitasun orrek.

* * *

Baiña aberriak, be gaur egun, euren zeregiña batetzeko oso txiki geratu jakuz. Goragoko mailla baten alkartasuna billatu bearreko aurkitzen gara. Eta orduan Europa'rantza begiratzen dogu.


Ez gara gu lurralde zabalagoen alkartzea billatzen dogun bakarrak. Iparameriketan eta Ego-ameriketan, Afrika'n eta Asia'n laterriak eta aberriak gogoz billatzen dabez aberrien gaiñetiko batasun oneik. Askotariko Erriak alkargana urreratzen dira ludi zabalean.

Eueropa'ren batasun au legeetatikoa izango litzake, ez odoletikoa edo izkuntzetikoa, ez eta endatikoa Europa-aldian urreko seniderik ez ei daukagu ta. Beste amaitasun sakon baten bidez alkartu bearko gara, lege utsa otza izango litzake.

Europa'ren batasun au egikeran, lurralde onetan diran nortasun eta izaera guztiak onartu bearko dira, bakez bizi nai ba'dogu beintzat. Zenbat aldakuntza egin bear onetarako gaurko Europa barregarrian!

Europa bear dogu, eta goazen Europa'ra. Baiña ez edozelako Europa'ra zuzenera, Europa askatura, bardintasunaren Europa'ra, Aberrien Europa'ra, anaitasunaren Europa'ra.

AGVR



URZAINKI, Erronkari'ko biotza

Oporraldian ezagutu zure erria!

NOR TA NOLA

Alemani-erria, jakintsu batzuentzat beintzat, paradisoa da. Bere Eleiza ospetsu ta bere teologoen indarrari esker, azken konsilioaren aurrerapenak lortu ziran. Eliz-nagusitzari buruz bakarrik mintzatzen diranentzat, gotzai aurrerakoidun eliza izatetik ez da igarotzen. Frings izan zan Erroma'ko eliz-auzitegia gaizkitu ta jorratzen ausartu zana. Ta Bea jauna, alkarrengandik alderatutako anaien biltzaillea. Oraindik berria dan kondaira labur baten jabe gera.

1933'gngo Uztaillaren 20'an, Hitler'ek Batikano'akin eliz-ituna izenpetu zuan. Hitler'ek gotzaien batzarreko lendakariari onela idatzi zion: «Lendakari jauna: Nere naia Alemani guziari, al dan leen, pakea ta zuzentasuna eskeintzea danez, ori lortzeko nere alegin guziak egingo ditut. Nere gotzain jauna, itza ematen dizut, gure agintearen aurka ezer egiten ez duen artean, katoliko-batzoki oien aurka ez degula neurririk artuko. Ta «boltxebismoa», kristauen etsairik aundiena bait-da, zapaldu ta suntsitu egin bear dugu. (arrezkero diska au maiz entzun dugu).

1941'ngo Dagonillaren 3'an. Von Galen, Munster'ko gotzaia, «eutanasia»ri buruz mintzatu zan, au da, ero, zaar eta lanerako gauza etziran gizakien erailtza salatu zuan, esanaz, legea jarri bear zala erailketa bildurgarri ori bukatzeko, ta urrats aunits emanak izan arren, oraindik ere berdin jarraitzen zuala, Martin Borman'ek eta onen adizkideak gotzai ura erail nai izan zuten. Goebels'ek «eutanasia» ori galerastu zula, bizirik atera al izan zun.

1946'gn urtean kristau-demokrata alderdia sortu zan. Adenauer zun buruzagi ta Alemania berritzen lan aunitz eta latz egin zuten. Gerora, sozial-demokrata, beste alderdiak auteskundeak irabazirik, azken urte auetan, Brandt aukeratu zun buruzagi. Gizon onek sortaldeko Europa'gaz artu-eman aundiak izan ditu, alegia, pakearen alde lan sutsua egiñaz, ta Nobel saria irabazi du. Orain, Rainer Barzel kristau demokraten zuzendaria egin dutela-ta, zalatza aundiak izan dira.

Konigswinter'en, alemandarrak eta engalandarrak «otspolitikari» buruz eduki zituzten alkar-izketetan, Brandt'en jokabidea ongi ikusia izan zan. Baita Ipar-Ameriketan eta beste erri askotan ere, Brandt'ek artutako bidea ezin obeagoa dala ikusten dute, Europa'n eta Ludi osoan pakearen bidean aurrera egiteko.

Alemandarrak eta sobietarrak alkarrengana geiago urreratzeko lanik aundiena egin duana Breznev jauna izan da. Breznev, Errusi'ko P. C.'en buruzagia da. Igaz, Politburo'an elburu orren aurkako etsai asko ba'zituan ere, denak garaitu zitun ta bere iritzia aurrera ateratzea lortu zuan. Orain, Barzel'en edo beste zerbaiten erruz alkar-izketa eta pake erabagiak ankaz gora egotziak izaten ba'dira, ta Brandt buruzagitzatik kentzea iritxi, Leonid Breznev'rekin beste orrenbeste gertatzea ez da arritzekoa izango. Ta jakiña, orduan ludiko politikak aldakuntza sakona izango luke, edo bildur izan bear beintzat.

Barzel'ek eta bereak, mayori aundia ba'luteke ere, erria zuzentzeko Brandt'ek baiño zailtasun aundiagoak izango lituzke, ta orain beitzat, ez du nai izango sobiatarrekin Brandt'ek egiten ari den bakea ondatu. Beraz, Barzel'ek 1973'gn urtean izango diran auteskundeeri itxoingo dio, gauzak patxaraz arturik, pakea egin ondoren, Alemani'ko buruzagitzara eldu nairik.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

ERDIAN, BETI, BETIKOAK

Ez dakit egia dan ala ez, baiña norbaitek esan ei dau: «euskaldunak sakabanatu ditugu»; esan, naiz ez esan, egi galanta danik ezin ukatu! «Batu» aren alde lenengo oiuak entzun ziranetik ona, len zatituta egoana birrindu egin dauskuela esan geinke. Eta tamalez, batzen-sakabanatze kontradizio orren ondorenak etxe geyenetan igartzen dira, batera edo bestera: Semeak dirala edo, tobak dirala edo, neba-arreben arteko griñak sortu dira. Lenago nere lagun izandakoak, orain etsaitzat artzen nabe. Batzuk nastean dabiltza; beste batzuk «nik au edo bestea esan ei-dot-eta».

Lengoan nere lagun batek beste bateri: «Ik ez dakik euskerarik eta, zelan irakurri al izan dok Arenasa'k diñoala ori?» «Ez, ez juat irakurri, neri, aldizkari baten irakurri dauanak esan jaustak».

Olantxe dabil gure mundu txikia! Esamesak, guzurrak, konsignak, iraiñak. Denpora asko ez dala, nigaitik esan zana, ez zan edozelakoa: «Hipokrates'en ziña apurturik odol ustuten itzi nuala gazte bat mendian». Nere erantzuna erreza izan zan: Egi billa joan bearrik ez egoala; laister, egunsenti aretan parte artu ebenak emen izango zirala; or daukazue, kalean, nere billa etorri zan abade jatorra; egia jakin nai dunak, itandu begio! Baiña zertarako asi ete naiz «nika», «itsu izan nai duna baiño itsuagotik ez dago-ta.

Guk esana izan ezkero, gora-goraka jartzen diranak, beste au siñestu al izango dabe: Z. A'n irakurri dogunez, Kardaberaz eta Erribide taldekoak, eskutitz bat bialdu ei-dautse Kaputxino'en nagusiari edo probinzialari. Eskutitz orren bidez, marxismoaren sator-jokoa salatzen ei-da, esanaz, ainbat aldizkari eleizako, alkarte ta giza-alkarteetan «infiltratuta» dagozala adierazoz. Barri emoilleak izenpetu bako eskutitz baten bidez artu ei-dau «karta salatari» orren kopia bat, ala ta be, gogor makillatzen ditu ustezko egilleak. Nik ez dakit Kardaberatz taldekoak olakorik egin daben ala ez, baiña norbaitek izenpetuta ba'dago eskutitz ori, zelako lapiko txikia erakusten dauan Kaputxino'en nagusi orrek! Eta, izenpetu bakoa izan ba'litz, zelan, egiztatu barik, talde baten izena iraindu? Dana dala, salakuntza orren mamiña aztertzen asi barik gure aldetik, Z-A'ko barri emoilleak berak diñoana lerro batzuk aurrerago irakurri ezkero, ez da arritzekoa Eleiz nagusiak olako kezkak izatea; Erri-gaztedi'koen aldizkaria dan «Gazteak» (?) dakarrena ta orrek argitara emon nai dabena, ez dot uste eleiza-kutsu aundikoa danik. Berri-emoilleak, ba, berak, felipetzat salatzen du «altza Felipe tru la la» abestuz, ta guk dakigunetik beintzat, pelipismoa ez da Pelipa deunaren deboziozko sortze barririk... ala bai?

Ezkerra, eskuma, atzeruntz, aurrerantz, «yenka» dantzan dabiltzanak ba-daukie gaur «erdia» billatzeko naiko buru-auste... baiña erdian lekurik ez! Erdia beti izan da demokratena, bai gizarte arazoan, bai izkuntzaren naspillean. Benetako demokratak ez dabe ezelako gogorkeririk onartzen. Beraz, erdi bidera etorri nai dauanak, ezin «progresisten» errotara urik eroan: ezin «gurea guretzat eta zuena erdi bana» ori onartu... ala bai, au be?

Erri bat maite dogunok, ezin alkarren etsai bezela salatu, baiña erri maitasun ori atxakitzat artu dabeneri laguntzen ba'dautsegu, laister gureak egingo du. Eta gero, «altza Pelipe tru la la» ez ezik, «riau, riau, los del amaika...» erderazko abestiak be abestu bearko doguz, oraingo abiadan orrenbestera elduko gara-ta.

Ez ete dogu, danok, «ni pekataria» esango? Ala, oitura zar ori be, alperrikotzat bota bear ete dogu? Lenengo oinkadea, nere ustez, alkarreri itzala izatea bear; urrengoa, elburu bardiña dogun ori lurrun artetik ateratzea; irugarrena, norberaren eta auzokoaren soloa zulatzen daben satorrak azaltzea. Onela, gitxienez, jakin al izango dogu nor dan euskalduna, eta nor maltzurra.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Garatea'ri

Ona gaur, emen, AGUR'en agertutako idazlan batek, nereari gaia eman. «Gazte» orrialdean dator, eta onetxegatik «Garatea» izenpetzen duna gaztea da noski, eta ezagun du. Lengo berriak ondo ezagutzen ez ditula ikusi bai-det. Eta geiago esango nuke, oraingo, euskera gaiean, gertatzen diranak ere ez geiegi.

«Aranatarren —zuk esaten diezun bezela— garaiko idazleak, asko iaioak ziran, eta guziak beren jakintza eta arima guztia Euskera ta gure Erriaren alde lana egiteko emanak. Ez, arren! berdindu ta alderatu ere AIEK egindako lana ta orain «euskeranto» zar ori sartu naiean dabilzkigun beste oiena!

Orduko idazlanak, zure aitak etzitula ulertzen, esaten dezu; barkatu baiñan euskera irakurtzeko oitura aundirik etzun itxuraz. Orain ere askok diote AGUR ez dutela ulertzen. Euskaldunak dira, baiña zoritxarrez, bere izkuntzan ezjakiñak, eta jakiña, ezpaita naikoa euskeraz itz egiten jakitea irakurtzen jakiteko! Gure izkuntzan ere —beste guzitan bezela— ikasi egin bear baita! Onekin ez det esan nai: b eta a = ba, edo s eta o — so dirala ikasi bear danik, ori emen nornaik daki-ta; eta au euskeraz erreza da; gure idazkera oso erreza bai-da (Euskaltzaindi'koen baimenakin). Baiña izkiak alkartzen jakitea ez da naikoa irakurtzen deguna ulertzeko; orregatik diot, lenengo irakurtzen ikasi bear dala.

Lengo idazle askok (geienak), «aranatarren» garaiekoak alegia, erriarentzat idatzitako gaietan, irakurtzen zekiten euskaldun guziak ulertzeko eran idazten zuten. Eta lengo idazkiak irakurri ezkero, eztet uste au iñork ukatu dezakenik. Baiña izparringi ontan «Kamiñazpi»k oso ondo dion bezela, idazti edo idazlan batzuetan gaiak izan ditezke zaillak eta orduan —beste edozein izkuntzetan bezela— erri xeak ezin ulertu. Eta berak (Kamiñaspi'k) dion bezela, bi era auek buztartzeko, bi eratako idaztiak edo aldizkariak bear. Len, «aranatarren» garaian auxe egiten ari ziran; eta guda iza ez ba'litz, gaur, euskera zoragarri aurkituko genuke. Baiña, bai erriarentzat bai jakiñentzat, EUSKERAZ idatzitako idaztiak izango genitun.

Aurrerago beste aldizkariren bat ere gogoz irakurtzen dezula diozu. Eta ulertzen al dezu? Bai noski! erderaz ere bai bai-dakizu. Bestela...

Nere ustez zu asmo onez zabiltza ta jarrai! baiña lenengo saiatu gauzak argi ikusten ta ikasten eta orduan bai, lan ederra egin zenezake gure euskera ta Erria'ren alde.

Orain, bien aldea ikusi dezazun emen dijoazkizu bi idatzi zatitxoak, bata «Grim» anaiak idatzi ta Altuna'tar Joseba'k euskeratutako idazti batekoa. 1929'gn urtean egiña. Bestea zuk diozun aldizkaritik artua.

«Emen naukozu barriro, irakurle euzkelduna. Len Wilde'ren ipuin mamitsubakin etorri nintzakixun. Orain, ostera, Grim anayen ipuin polittakin natorkixu.

Ipuin onek gustiz ezagunak dira erderaz. Ludi (mundu) gustiko umiak buruz ikasita daukez. Geuk be umetaldijan amaika bidar irakurrita daukoguz eurok!»

Zer derizkiozu, ez al da ondo ulertzen? Berriz esanda ere, euskeraz jakintza pixka bat —beintzat— izan ezkero.

Orra orain beste aldizkariaren zatia:

«FONETIKA IKUSPUNTUTIK: Ahozkera batua beti ikastoletan irakasten da herri guztietan; beraz, euskararen ESTRUKTURA FONETIKO ORIJINALAK ikastea...»

Naikoa dala derizkiot, bi zati auen aldea ikusteko. Len eta orain «batzuek» erabiltzen duten izkuntza berdiña ez dala ikusteko.

AMALE'K

EUSKAL IDAZLEON ESKUBIDEAK

Euskal-Idazleok nolabait gabiltza gure eskubideak gordetzen. Kontu xelebre asko gerta oi zaigu, egin ditugun lanei buruz. Onelako bat gerta zait neri oraintsu. Neronek ez nuan ezer jakingo: baiña Zubikarai adiskideari eskerrak, jakin nuan gertatua. Ondarru'tik, adiskide orren eskutitz bat jaso nuan, au esanaz:

«Kaixo: Gaur (Epaillak 22) «GACETA DEL NORTE'ri», zati au kendu dautsat. Segurutik abesti au oso ezaguna izango da zuretzat...»

Bilbo'ko egunkari orrek zer zekarren aztertu nuan, eta berri polit bat zekarren bere zerrendetan, au ziolarik: MUSICA PARA UNA POESIA EN EUSKERA.

Izenburu orren bidez au jakiñarazten zigun: «En el concurso «FELICIDADES, PAPA», ha sido premiada una poesía de la que es autor José Félix Olamendi, del barrio Artola de Galdácano...»

Lan saritu ori, euskeraz zetorrela gaiñera. Ta olerki orri norbaitek musika jartzea komeni zala, ta abar eta abar...

Politena au zan: Olerki saritu ori, nere KANTA-KANTARI izeneko liburutik artua zegoen. Leiaketa ura, AITAREN EGUNA ospatzeko eratua izan zan; eta euskerazko lan ura itz batez aldatua zetorren:

Nik nere liburuan «MAITE, zuregatik» esaten nuan lekuan; gure sari irabazleak «AITA, zuregatik» jartzen zuan. Onela, Aitaren eguna jaieratu nai zukean, nunbait.

Beraz, saritutako lantxo ori, lapurtua zuan.

Jakiña; lanak saritzeko BATZORDEKOAK, ezer gutxi zekiten, gure literaturaz, eta askoz gutxiago, lan ori lapurtua zanik. Beraz, lapurrak saria iritxi du, gure MAKOEN ezjakiñari eskerrak. Amaika onelako gertatu oi da gure baratzean!

Gertaerak eztu garrantzi geiegirik. Baiña jakin dezatela irrist egin dutenak zai gaudela, okerrak zuzentzeko.

* * *

Gertaera garbitzeko, LA GACETA DEL NORTE'ko zuzendariari, idatzi nion gauza garbi zedin. Onen erantzunak jakiñarazten zidan, LEIAKETA ori delako CORTE INGLES'ek antolatua zala. Aurren artean egiña izan da euskeraz, eta orra zeiñen poliki irabazi duan saria gure koxkorrak, nere liburutik lantxo ori jasoaz.

Nolanai jakin dute bai egunkarikoak eta bai CORTE INGLES'ekoak, zer gerta zen. Kanta orrek aspalditik du bere musika, ta eztu beste jantzirik bear.

Au aur batek egin du: baiña zenbatek egin du beste orrenbeste nere KANTA BERRIEZ baliatuaz! Eta or dabiltza nere lanak eta musikak nornairen eskutan.

Guk, euskerari laguntzearren, barka egiten diegu «plajiario» oiei; baiña euskaldunak bizi ditezen, gure eskubideak zaitu bearko dira noizbait.

ETXANIZ'TAR NEMESIO

ARROKERIA

Itzak bakoitzaren pentsaera agertzen dabe, baita biotzaren gurariak be. Biotza baketsu danean, griñak eraginda ez dagoanean, itzak be baketsuak dira. Biotza irikitan dagoanean, griñak bizi-bizi dagozanean, itzak be griñez baterik egon oi dira. Griñak olatuak lez dira; tximistak lez. Ba-dira gizartean, munduan, danak edo geienak daukena. Indar aundia dau gizonaren bizitzan: arrokeria. Arrokeria norberaren buruaren geiegizko maitakeria da.

Arrokeriak norberaren aunditasuna billatzen dau.

Arrokeria bi eratakoa da: arrokeri batek norberaren burua goratzen dau; beste batek besteak zapaldu, apaldu, baztertu, ezetsi. Neu ta neu... batzuk ez dauke beste itzik. Euren burua, euren ondasunak, euren jakituria... Eurek osoak dira, utsik gabekoak.

Beste batzuk ostera besteak apaldu egin oi dabez... ez dauke gauza, ez alde onik... utses eta akatsez beterik dagoz... Begi zorrotzak daukez bestearen utsak ikusteko... begi zorrotzak bestearen ulea... galtsua ikusteko ta zator-begiak euren utsak ikusteko.

Ez dabe ikusten mukurra, zugatza euren buruan...

Ainbat biurri txarren iturri da arrokeria. Berak sortu-erazten ditu burtzaletasuna, aundikeria, aizunkeria, bekaitza ta gorrotoa. Zenbat zoritxar eta banakuntza arrokeriagaitik gizartean! Zenbat gorroto munduan! Zenbat guda ta eztabaida anai-tartean!

GOIRIA

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendati ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

POZAK ETA KEZKAK

ALPERRIKOA SARTU, BEARREZKOA KENDU.—Guk, h'rik erabilten ez dogunok ainbat txotxolokeri entzun bear izan doguz, geienetan, izki bateri artu dautsagun begikoak orrenbestera bultzatzen gaituala-ta... ta guk, izkieri eureri gorrotorik ez! Orain baiña, Eibar'en izango dan umeen jaietarako agirian ikusi dogu: Txistulari'ren ordez Xistulari *dakar; Txapelketa'ren ordez* Xapelketa. *Or ikusi «t» izkiaren baliorik eza! Itxuzas, +h —t, seigarren «batu»aren ezaugarri dira, ta ona emen zure konputaderako galdegaiak: h—t+L+Fr =Euskeranho. Zer ete diñoe orain gure biologolinguista-aprendizak? Au dek bahasuna muhilak!*

Eibar'errako agiri orretan be beste gauza bat ikusten da; Bokal biren arteko h'rik bear ez dabelako, Eleizkizunak kendu ta kiho!

* * *

ERREZTASUNAK BEARTUTA.—Euskera «batu»etatik baten argitaratzen dan aldizkari batek, Kilikili'ren zuzendariak bialdu dautsen eskutitza agertzen dau. Dakizuenez, iztegi bereziz ulerterarazoteko «asteris»ko bat jartzen dautse bere irakurleak urletuko ez dabezan itzak argi azaltzeko; ezagutu ez edo an urrutitik artuak diralako. Ona emen, Kilikili'k darabiltzan itz zaillen azalpenak aldizkari orretako iztegian: «orratiño» (Kilikili'k) = horregatio, hala ere (ulerterrezago lez) — «bere» = ere; «barik» = gabe, bage; «beiñen» = behinen, principal; «ba» = bada, donc... *ta abar. Nungo euskalkia batzen ete dabiltza? Ala martietarrak etorri ete dira Euskalerrira guk igarri barik? Noiz itxartuko ete jakuz «xistu» orren doiñura dantzan dabiltzan linguista txoriburuak... ala xoriburuak?*

* * *

UKALONDOKA TOKI BILLA.—Orreik ezker-ezker erbeste zaleak dituk, ta beste orreik lengo eskumatar burgesak. Or diardue aita aberatsen «h» uts dun seme alperrak erdiko pontifize lez agertu naian. Alperrik baiña. Ezkertarrak euren lekura joan dira; «eskumatar» beste orreik zuek baiño ezkerrerago izan dituk beti; ta orain lekurik ez iñun zuentzat! Ee ba mutillak, uretara jausi baiño len artu puxigak besapean.

PIPER-ZIRI

Arrate'n

Aldazabal'dar Peli zanak, eibartar petopetoak, lur onetik joan bearrari usaiña artu eutsanean, euskeraren alde, umeen artean batez be, zerbait laga nai izan euskun. Mito bat esango dabe gaurko «argi» batzuk, baiña bere naiak ondoren dotoreak izan dauz. Aurten be, lenagoko urteetan lez, ume arteko euskal leyaketa polita izango dogu Arrate'n.

Amargarrena aurtengo au. Bagil onen 4'gnean ospatua izango da, azpian dotozan orduetan:

10'etan, Mezea Arrate'ko txadonean, bere, Peli'ren eta ildako adizkideen gogo-alde.

11'etan, Euskera-leyaketea —irakurriz eta idatziz— amalau urterarteko gaztetxoen artean. Mailla bitan: 11'tik 14 urterartekoak eta zazpi urtetik amarrera artekoak.

Epai-maikoak, Euskeralagunak alkarteak eratutako jaunak.

Sariak; (zarragoen artean):

1.—Txirringa, GAC. etxeak emona, Txapela ta Kopea.
2.—1.500,—lauerleko, ta txapela
3.—1.000,— lauerleko

(Gazteagoen artean):

1.—Txirringa, BH. etxeak emona, Txapela ta Kopea.
2.—1.000,— lauerleko, ta Txapela.
3.— 500,— lauerleko.

Tarteetan, KEZKA'ko dantzariak euren ekiñaldiak eskeñiko dabez, Perez Sarasketa jaunaren ardurapean.

Oarra, leyaketa onetara Euskalerrietako ume guztiak deituta dagoz, baiña ikastola bakoitzari auxe eskatzen yako: «ez dezatela bakoitzetik lau ume baiño geiago bidali», bestela amaitu eziña izango litzake-ta. Izenak Bagil onen irugarrena baiño len bialduak izan bear dira, zuzenbide onetara: Euskeralagunak, Aptado. Correos 321, Eibar.

Ta gure aldetik, beste au bakarrik, goazen al dogun guztiok Arrate'ra, ume jator orreik txalotzera, ta onelako egunak gertatzen alegintzen diranak berotzera!

IBUR

GAZTE

Idazle Barriak

Ikus gendun lengoan Mungi'ko ume euzkaldunan lenengo Jauna artzea. Ze gauze ederra eta polita izan zan.

Umetxoak neskato ta mutil, guztiz zuririk jantzita aingeruan irudi joan ei zan eleizara. Eleizan sartu baiño lenago txistulariak betetu eban dana txistuan soiñuagaz.



Gero, umetxoak sartu ziran abesturik batera. Eleiza, osorik betetuta, bai gurasoakaz, etxekoakaz eta lagunakaz. Ta olantxe apurbat geroago aurran meza santua Jesus'en igokunde egunean. Jauna artzen joan ziran umeak, dotraiñea ondo ikisita uki eban, eta ze politxo abestu, eta ze politxo erreza...

Sermoian be, bake, bakean danak, eta gero abeslariak abestu ta batera joan ziran aingeru txikitxoak jauna artzen. Azkenean gogoratu bear du arek neskatillak eta mutiltxoak Agur Erregiña ederto abestu ebenak iñon laguntza barik.

Urten ta eleizpean txistulariak barriro gozotu eban euran soiñu politagaz. Bai ta bere udabarri onetako gitxi lez oso eguzkitsua ta argia genduan eguna.

Auze da nire eretxia: Don Paulino'ri eskerrak.

LARRINAGA'TAR YOKIN
(9 urte)

* * *

Lagun biotzekoa: Nik gaur gure Jauna artu dabenakatik berba egin gura dautzut. Nire eretziz ondo ikusi dot lenengo gure Jauna artzea. Umetxuok ondo abestu, irakurri da orrek gauzak egin ditue. Gaiñera neskatotxo batek askoz be obeto egin eban, orrek neskatotxoak Goizaldi deko izena. Mutiltxoak bere ondo egin dabe.

Gero, gaiñera be urten genduanean txistu ta danbolin joten ibilli ziran, AGUR'ek bere banatu zituezan.

Arek umetxoak euren barruan zentidu ebena izan za politana, oso pozik egon ziran danak euren gurasoakaz da.

Egun ederra izan zan ba umetxoak bere orrenbeste pozik egon ziran.

Da ementxe itxiten dautzue zuen lagun kutunak asko gura dautzuenak.


MA. CONCHI IDARRAGA
(10 urte)

* * *

Nere lagun adizkide!

Nere eretziz, lenengo jauna artzea polito egozan; arek ume politak ondo abestu eta irakurri eben. An lenengo jauna artzen nere lagunak be egon ziran.

Arek umeak lenengo euren barruan sartu ebena zan, lenengo Jauna artzea zala. Orduan, arek Jaungoikoa barruan eukela bedeinkatuta gelditu ziran, barrian pekatu egin arte Jaungoikoagaz gelditu ziran.



Bai, ondo egon ziran txistulariak bere euren tanboliñekaz, ez diñot neuk jo nebela ta, dan dana ondo egon zan.


Eta orain ba noa. Agur!

JABIER IDARRAGA
(13 urte)

Bikiak Biñaka Gernika'n

Ereslari, kirolzale, euskalzale ta ez dakit zenbat gauza geiago dan Sarasua'tar Erramun'ekin izketalditxo bat izan al izan dogu. Oraingo onetan, beste zaletasun guztiak baztartuta, gaur buru-auste bategaz estututa aurkitu dogu: Gernika'n il onen 4'an izango dan bikien, irukien naiz laukien jai ta alkartzeagaz. Itxaropnez beterik dabil, iñoiz baiño ederragoa izango ei dabe, lengoak be ez zirala makalak izan. Nundik-eta, ludi guztiko bazter guztietatik bikoteren bat be etorriko ei-da. Eibatar Sarasua anai biki oneik sortu ebena, sei aldiz osotu izan al dabena, zazpigarrenez ospatuko aurten, ta itxura guztiak daroaz, ez emen inguruko jaia bakarrik, ludi guztikoa izatera be elduko dala, «internazionala», ta emendik aurrera beste laterri batzuetan be ospatua izan.

Ta gure irakurle bikiak ondo jakin dagien, ona emen egun orretarako, Bagil onen 4'gnerako jakingarriak:



11'etan, Gernika'n izan bearra.

12'etan, Udaletxeko enparatzan biltzea, ta Batasun enparantzaraiño ibillaldia.

13'etan, Abade bikiak emongo daben mezea, alkarte onen zaindari diran Benito ta Eskolastike deunen omenez, eta il ziran biki guztien gogoen alde.

Gero bakoitzak, edo obeto, bikoitzak bere bazkaria.

16'30'etan, Batasun enparantzean jai aldia ta datorren urterako jaia nun ospatu auke-ratzea.

Jaupea, egualdi ona ba'da, Batasun enparantzean izango da, bestela Miren Deunaren Txadonean.

Ta ezer be ez besterik, egun ona izan dagizuela danok, ta zorion danori bikaña, irunaka, launaka ta... geiagoka ba'dira n'raiñoka.

MIKEL

Euskal hit Parade

Irabazle «AGUR MARIA», Extitxu'rena, ta ona emen lenengo amarren zebaketea:

1.—«Agur Maria», Estitxu'k abestua. Columbia.
2.—«Guria», Larrañaga'tar Donato'rena. Belter.
3.—«Orrela Doa Mundua», Jon Enbeita'rena.
4.—«Amets», Araba taldeak abestua.
5.—«Itxaropen Bat», Oleskariak.
6.—«Ezin Aztu», Luis Mariano zanarena.
7.—«Umezurtza», Estitxu'rena.
8.—«Zure Begiak», Mocedades taldekoa.
9.—«Bi Urte», Estitxu'rena.
10.—«Aurra Seaskan», Urretxindorrak.

Zailla izango dala uste dogu, Estitxu'ri iru-illabetekoa kentzea, ala ta be, bere iru abesti amar lenengoetan izateak kalte egiten dautso bat bakarra gorago ipinteko. Ta or datoz gogor, batetik Donato Larrañaga, il azkeneko amabostekoan irabazle, ta Jon Enbeita, berea gogor aurrera. Iruron zaleak eta jarratzailleak aleginduko dira eurena lenengo maillan jartzen. Datorren illerako iruron artean nor-geiago polita sortuko dala uste dogu, besteren bat sartzen ez ba'da bitartean. Ta beti esaten dan lez: onenak irabazi dagiala.

Antologia Coral Vasca izenburuagaz, eta Usandizaga disko etxeak argitaratu dabezan disko eder orreik, il onetakoan sartzeko garaia izango dabe, asko saltzen da-ta, baiña autarkiak falta izan jakoz. Movieplay etxearen diskoakaz ostera, ez da bardin jazoten: Onek ba-daukaz autarkiak, baiña irratietara euren eskari gitxi eltzen da. Bear dan beste zabalkunde egiten ez jakelako ete-da? Izan leike.

UDAKO ABESTIA.—Boto asko daukaguz. Baiña beste askok zer egin bear dan Udako Abestia aukeratzeko, eskatzen dauskue. Argi jarri nai dogu, Udako Abestia'ren alde botoak emoteko, zuzenbide onetara eskutitz bide zuzendu bear dala: Udako Abestia; Apartado 1.148, Bilbao. Ta eskutitzean garbi jarri abestiaren izena ta nok abestuten dauana. Ulertzen? Idatzi arin edo belu elduko zara.

LOURDES TA XABIER

auspo jotaldiak

Orrillaren 19'gnean, ta emen agertzeko beranduegi jakin gendun, Bilbo'ko Santiago Apostol aretoan Bizkai'ko Bakidekiñen Alarkartasunekoak, euren 8'gn. eresaldia emon eben, ta ederto gaiñera. Beethoven eta Rimsky-Korsakov'en doiñuen artean Loroño'tar Josu zuzendariaren eta Arrate'tar J. S.'renak be emon euskuezan. Onez gaiñera, «Deuztoarrak» abesbatzak, zortzi euskal abesti zoragarri eskeiñi euskuzan, ta beti lez, doiñuzaleok atsegiñez etxeratu gintzazan.

Illero izaten dira ekiñaldi oneik, ta euren bultzalari Bizkai'ko auspo joztaille nekaeziñak Loroño jauna aurrean darabillela. Ta, barriz berandu ibilli ez gadizan, ta naizta zer abesti ta doiñu entzun al-izango dogun jakin ez oraindik. Bagil onen 16'gnean, illuntziko 7 ta irularenetan, 9'gn ekiñaldia izango dogu, Santiago Apostol'eko aretoan bertan. Egon ba zain eta ez aaztu.

ASTI



DEPURACION DE AGUAS S. A.

ura egokitzen berarizkoak

edangarria-lantegirako-zinkindua-igeritegiko

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 **BILBAO**

KONTU KONTARI

Zapataria ta dendaria, arpegiz antz aundikoak ziran; peto-petuak: Molde batetik sorturikoak zirala esan eitekean.

Ori dala-ta, sarritan, andraren batek edo bestek, dendariari galdetu oi eutsan, kalean ikustean.

—Nere zapatak barriztau al daustazuz?

—Ze zapata ta zapata oste! —erantzun oi eban dendariak—. Ni enaz zapataria!

Guzti orrek ez dau garrantzi aundirik; baiña orra egun batez zer jazo zan: Dendaria il egin zan uste gabe. Testamenturik ez ezer egin gabe. Osagillerik be ikusi gabe.

Emaztea, jakiña, larritu zan uste gabeko eriotzarekin, baiña geiago larritu zan kontixu, testamentu gabe alde egitean. Eta urduri, joan zan zapatariarengana, zer jazoten zan esanaz, eta arren eta arren, erdu zedilla ixilpean bere etxera, arazo ori atonduteko, bere senarraren arpegi peto-petua eban ezkero.

Eldu zan zapataria aren etxera, ta alargunak kezkarrean erabillan truke jokoa ontzat arturik, gorde eben bien artean ildakoa oepean, eta zapataria etzun oe-ganean.

Ondoren, joan zan alarguna notarioarengana esanaz:

—Jauna; gure senarra ez dabil ondo egunokaz eta testamentua egitea bururatu jako bada-ezpadan be.

—Goazen ba! —erantzun eutson lege-gizonak andreari—. Eta etxera eldu ziranean, oera urreraturik, esan eutsan notarioak, «dendariari»:

—Ondo egin dozu, ogasun arazo oneik garaiz erabagiteaz, gero akiakulorik sortu ez daiten senditartean. Zeuk esango dozu, zelan banandu nai dizuzan zeure ogasunak.

—Oorra ba —erantzun eutson «dendariak»—. Seme-alabarik ez dodan ezkero, erdiak izan daitezala nere emazte maitearentzat, eta beste erdiak, nere betiko adiskide, auzoko Txomin Buruargi jaunarentzat.

Alan egin ebazan paperak, notarioak. Emazteak arritasuna azaldu eban arren, ixil lotu beärra izan eban, berak asmauriko truke jokoa azalduko ez ba'zan.

Ikusi danez, zapatariak bai ekian mesedeak egiten, baiña ondo kobrauta.

ABELETXE

beldurtiak

Batzarra zan. Zer-ikusi aundiko billera. Artarako zan aretora askoak agertu ziran. Izan ere laister zertorkean izlaria ez-ikasi eta izen-ttikiko ez izan.

Alako batean gure iakintsua iritxi zan.

Begi guztiek ari so.

Ua, ezer gertatzen ez ba'litz bezela oso erara eseri zan. Guztiek igerri zioten. Arek ez zuan arrandiro mintzo nai. Esakera borobillegiek entzuleen buruak naastu egiten.

Entzutera urbildu ziranek argia nai zuten. Arruntean geron buruetan daramazkigun iritzi aspergarriak eta bat aizatu. Jakintsu arek bakarrizketa ez maite. Arek askozaz ere naiago zuan alkarrizketa. Bakoitzak bere iritzia esan zezala. Norbaitek biotzean zekazkian kezkak zabal-zabal adirazi zitzala.

Guztiek batean egin zezaketen gogakera-ariketa, askoaz ere onuratsuago izango. Arek, bere iritzi eta asmoak besteei indarrean erasten ba'zizkien, zer aurreratuko?

Eta, galde-erantzunetan ekin zioten:

Iakintsuak.—Gaurko gure autuak zertaz bear ditugu?

Erantzunik ez.

Entzuleak bestela oituak izan. Geroenean urli galdezka iaiki zan:

—Ni iltzeko beldur naiz! Zergatik? Nere beldur au zer det?

Berriro ixil-unea; Luzetxoa. Galdelariaren berri guztiek zekiten: gizon zintzoa zala. Artu-emanetan itz txoro gabekoa. Auzolanetan gogoz ibiltzen zana. Eskean zetorkionari iardespen zitalik egingo ez ziona. Bestetik, galdea egin zunaren beldurra guztiak geiegi ere izan, baiñan aitortzeko kemenik iñork ez.

Iakin.—Gizon! Bein ere il izan al zera?

Gald.—Ez al dezu ikusten? Il izan ba' nintza, orain ez nengoke emen zurekin berriketan.

Iakin.—Alaxe da! Auxe esango nizuke: geron biotzetan alakoxe zirrara eta iñarrostaldi izan degunean, zerbaitek eragiña izan oi degu. Maitasunak gogoa pizten eta iabaltzen digu. Gorrotoak itsutu egiten gaitu. Zerbait obesten degunean, ari etekiña atera nai izaten. Eta era ontara gabiltza ibilli gerok izaten ditugun nabaimenetan. Beraz, geron mamian ukittu ez gaitunak ezer ez digu adierazten. Uste okerretan ba'nabil, zerok esango didazute...

Eta, entzule guztiek batak besteari begiratzen ziotela, ixil-unea nabarmenago bezela gertatu zan.

Iakin.—Iazokunek oro gugan alakoxe xaki uzten. Oar-ikaste berexia. Egia ote-dan zerok esango didazute.

Guztiek beren buruz biaezkoa adirazi nai izan zuten.

Iakin.—Ikusiaren ikusiz geron barruan zirrara egin izan digutenek gerogan zerbait uzten... Eta gertatu ez zaigunetik bildurkizun gutxiago guk. Ikusia ioan zan. Min eman ziguna urrutiratu zan. Zirraraz iñarrosi ginduana ioan zan.

Gald.—Zuzen ari zerala uste det.

Eta batzarrekoek beren buruen eragiñaz baiezkoa ematen!

Iakin.—Orain, berriz, il izana zeranik ez didazu esango. Zure eriotza ez dezu zere bizitzan zuri gertatutako zerbait. Eriotzazko nabaiketarik ez dezu izan zerorrengan...

Delako galdelariak entzuten zuana ia ezin siñistu zuan. Eriotzaren ikararik ez zezakean izan, baiñan egitan eriotz itzak bakarrik beldurra sartzen zion. Ezurretaraino!

Iakin.—Oraindik ere geron ariari el dezaiogun... Zure galdea nondik sortu zaizu?

Gald.—Nere eguneroko izateak erasaten...

Iakin.—Bizitzaz itz-egin dezagun.

Bizi-izatea deitzen diogun gure izatea au, zer degu? Ez al da atzo goizean ere eta gaur bertan ere arnastu dezun zerbait? Ustez beintzat, urte askoz, zere eskuz atxiki izan dezu, eta bein ere zure-zure izan gabe, arean! Egunero zure auzokoekin izan dituzun artu-emanak, asarreak, maitasunak, aldarte onak eta beste ainbeste zertxo bizitzaren zati ederrak dira. Une alaietan alakoxe biotzondoko eztiak izan dituzu. Aipatutako guzti au BIZITZA guk deitzen.

Entzuleak baietzean zeuden osorik.

Iakin.—Ona, bada: beldur ematen diguna, eguneroko artu-eman oriek bertanbera ezereztu ditezkela gogoratzea besterik ez da. Begiek beti dakustena utsean iroltzeak, izu beltza guri sortzen. Geron mamia ikutu ez digun *eriotz* orrek zer beldur-ikara eman dezaiguke?

Galdelaria ixildu egin zan.

Iakin.—Bukatzeko: erasankizun zaizunaren beldur zu zergatik zaitut?

ETXEBERRIA'TAR P., S. I.

"GURE ORIXE" V

Eta zearbidez **Pio Aita Kaputxino Zauriduna**

Aita Santuek zer eta zelan.—Pio Aitaren arazoa, «ORIXE»k diñonetik uste daiteken baiño askoz korapillotsugo ta zaillagoa dala idatziz, amaitu neban azken zatia.

Leenengo urteetako persekuzioan, griña gaiztoak ta aragikeri lotsagarriak sartu ziran lanean; ta orrein ekiñaz zigorradak etorri yakozan Pio Aitari.

Baiñan azkenez, lotsagarrizko zer guzti areik, agerira, azaldu ziran; ta Erroma'tik, elizbarrutiko gongotzaia bera leku-uztera beartu zuten; eta kalonke bat edo beste, be, zigortu eben.

Azken urteetako persekuzioetan, barriz, diru-kontuak sartu ziran; ta ondorioa lez, diruen bearra ebenak, Pio Aitari yoakozan diruak, eurek erabiltea gura eben. Ta orretarako Pio Aitaren obra ezereztu gura eben; eta ortik, Pio Aitari aurka, gelditu barik, egitea, ortik etorren.

Eta Aita Santuek, be, erdi ta parte artu bear izatea, ortik etorri ei zan.

Ta ortik atara daikegu be yoan-etorri andikoa izan zala Pio Aitaren arazoa; ez, ostera, «ORIXE»k, bere lerroetan, usterazo egiten dauen bezin erraz ta tolesbakoa.

Ona ba, gaurko atal onetan, Aita Santu bakoitzaren Pio Aitarekiko eritxia ta esku-sartzea azalduko dot; baiñan berba gutxitan.

15'garren Benedikto (1914-1922), zalantza barik, beti Pio Aitaren aldekoa agertu zan.

Iñoan arek Pio Aitaz:

«Berarizko gizona, oi ez bezelakoa, Jainkoak lurreko gizonak bide onera ekartzeko, noiztik noizera bakarrik, mundura bialdu oi dituzan alangoa».

Ta il arte, eritxi orretan iraun eban. Aren ondoko 11'garren Pio (1922-1939), asierako urteetan, gogorra izan zan Kaputxino Zauridunakin.

Aira Santu aukeratu-berri zala-ta, urrengo urtean bertan, Pio Aitaren aurkako lenengo kondenazioa atara zan Erroma'tik, 1923'an.

Eta 1923'tik 1931'ra arte, bost bider kondenatua izan zan Erroma'tik Pio Aita.

«Sant Uffizio» eritxon Kongregazio Goienekoa, ekin ta ekin, ebillen ibilli beti Pio Aitaren aurka.

(Orduan «Suprema Sacra Congregatio Sancti Officii») eritxon; orain ez dago Kongregazio ori, «II Batikano» Batzarraren ondorioa lez, il bai-zan.

Orain aren ordez, «Sacra Congregatio pro Doctrina fidei» = «Kristau fedea zaintzeko Kongregazio santua» da.

Jainkoari eskerrak, Elizaren laterrietarako-sekretario zan «Gasparri» kardenal entzutetsua, Aita Santuari esan ta esan ebilkon, Pio Aitaren auzian, kontuz ta geldi yarduteko.

Eta orra, 1933'an, Pio amaikagarrenak bere eritxia burutik burura aldatu; eta ordurarte azaldutako erabakiak zearo bestelatu, edo obeto esateko, bete-betean kendu egin ebazan.

Eta Kaputxino Zauridunaren aldezle zan «Cuccarollo» gotzaiari onelan zirautson:

«Pio Aitari askatasun osoa emon bear yako, abade-eginbidea betetako; eta askoz geiago, be bai, oraindik».

Eta yoan yakon Kaputxino-moltzoari, be, esan eutson:

«Laster poz-poztuko zaree. Elizaren kondairan, lenengo aldia da «Sant Uffizio» Kongregazioak bere agiria guzurtau dauela; eta berak artutako erabakiak, be, ezeztu dituzala».

Ta bertan bera Pio Aitari zigorrak kendu; ta askatasun osoak emon eutsozan.

12'garren Pio (1939-1958), beti on-ona ta beti aldekoa izan eban Pio Aitak.

Alde aurretik, begi igarlariz ikusi ta igerri eban dana: Pio Aitari dirutan milloaiak eta milloiak, eunka ta eunka, etorriko yakozala; eta diruketa orrein inguruan, baltzak ta gorriak eroan bear izango ebazala; ta azi-orrazi zailletan aurkituko zala.

Diruen bearra ta gosea ebela-ta, arerio gogorrak sortuko yakozala; ta oneik aren ta aren obraren aurka izugarrizko egin-aalak burutuko zituztela.

Eta idatziz eskubide osoak emon eutsozan Pio Aitari.

Eta Zauriduna, santu zalako gogoetak arturik ta kezkaturik bizi izan zan bizitza osoan.

Igaro orain 12'garren Pio'tik, 23'garren Yon Aita Santuagana etortzeko.

Kaputxino Zauridunaren arericek, Aita Santu aren zadorlaria (sekretario) irabazi eben; ta onen bitartez, eurek nai eben Ikerlaria (bisitadorea) bialdu «Sant Giovanni Rotondo»ra.

Eldu ba'zan eldu, laster ezagun eben yendeek, Pio Aitaren aurka egitera etorria zala.

Pio Aitaren aurka egozen yendeengana bakarrik urbildu oi zan; ta arei bakarrik itaunketak egiten ibilli emen ta or ta an.

Eta egun batez, eliza, yendez beterik egoela, elizkizun andian, Ikerlaria berbera pulpitora igo ta itzelak esan ebazan Pio Aitaren kontra.

«Guzurti» bat zala, «engaña-mundos», bat zala, aregaz ez fiatzeko iñoz be; eta bai al dakit nik zeinbat gauza geiago.

Bitartean Pio Aita isil-isillik koruko bazterrean, otoitzean; ta ganerako fraideak, be, koruan, dana entzuten.

Baiñan, anartean bertan, Milan'go gongotzai zan, Montini kardenalak, gero 6'garren Paul izango zanak, Pio Aitari eskutitza idatzi; ta dei egiten eutson Milan'era, beregana etorteko; pozik artuko ebala bere eliz-barrutian; ta an bildur barik egongo zala.

Alan ta guztiz, be, 23'garren Yon'ek ez eban kondenatu, Ikerlariak alango gauzak esanda be.

Ez eban kondenatu; isillik gelditu zan; ta beste Ikerlaria barriro bialduteko asmotan ebillen; baiñan gaxotu ta il zan.

6'garren Paul A. Santuak, 12'garren Pio'k bezela, beti eritxi andian izan eban Pio Aita; eta aurrean adierazo dogun lez, Milan'go gongotzai zanean, eskutitrez beregana deitu be egin eutson.

Eta ganera, «Pio Aitaren otoizlari-taldeak» onartu ta onetsi zituzan. Talde oneik mundu guztian zabaldurik dagoz.

Aita Santu orrein eritxia ta egikera Pio Aitari buruz, labur ba'da be, azaldu dodanez gero, argi ageri da, auzia ez dala, «ORIXE»k idatziak emoten dauen legezko erraza ta bakuna: askoz korapillotsugo ta zaillago dala.

Eta lantxo au, be, luzatu yat; eta urrengorako, au da 6'garren atalerako, uzten dot gaiaren yarraipena.

Bitartean agur, irakurle, Jaunaren baitan.

YURRE'TAR YULEN, A. K.





urteko garbiketak

Uda asieran batzuk, baiña geyenak, mendizale bazkunak, udabarrian ospatzen dabez euren jayak, eta aspalditik zuztartuta dagozan esketiño, jai oneik, danak edo geyenak euskal giroko jai alaitsu garbiak izaten dira, ta mendizaleak, baita ez diranak be, asko bilduten dira eurotan, ainbat geyago taldeka antolatuak diranean.

Orril onen 7'gnean, guk dakigunez, orretariko iru ospatu ziran Bizkaia'n eta bat Gipuzkoa'n. Egun ortan izan ziranez iru jaiok, jakiña, ezin izan giñan danetara joan, naita guzti orreitarako deia izan. Zamakola'ko (La Peña) «OSEA» bazkunak, «Ganguren», «Baskonia», «Padura» ta «Edesa» taldeakaz batera auzune ortan antolatu eben jai polit ortan izan giñan. Jai oneik, urteko txango, leiaketa, ibilketa-neurtu ta ganetiko gora-beretan irabazi dabezan sariak bananduteko izaten dira, ta, zelan ez! urte barruan ikusi ez diran adizkide zintzoak agurtu ta alkar besarkatuteko be bai.

Jai onei baiña, bear daben euskal giroa emoteko, dantza garbi kementsuekin asten dira, ta igande ontakoa be orretara asi zan: Bilbo'ko «Dindirri» dantza taldekoak, ondo baiño obeto dakiezan lau edo bost dantzaldi bikañekin. Txalots ugari entzun eben ta euren ostean, txoli, domiña ta beste ainbat sariren banakuntzea. Guztiz jai alaia ta anaikorra.

Beste onetariko jai bat, Errekaortu'n (Regato) ospatu eben Enkartaziño guztiko mendizale bazkunak batera, eta an egon ziranak esan dauskuenez, beste jai guztiak legez, oso alai izan ei-ziran, mendizaletza andia bilduaz.

Beste onetariko bilkera bat, Gipuzko alderdiko Izarraitz'en, Xoxote inguruan egingo zala, iragarrita eukagun egun orretarako, ta uste dogu ospatuko ebela, baiña ez dogu bertako barririk. Pozik izango giñan euren artean, gure erritarrena izan ez ba'gendun batera, angoen artean egun euskeratsu bat igarotearren. Beste baten zorion obea izango al dogu!

Goragoko lerro orreik idatzita gero, «Bilbao Alpino Club»eko mendizaleak euren urteroko jaya ospatuteko zirala Orrillaren 14'gnean, ta bertan izan giñan, or doguzan adizkide on asko agurtuaz aldi pozgarri bat igaroteko asmoaz. Eta egiz, ez yakun damutu izan, an izan ziran mendigoizaleen artean, arraiña uretan baizen pozik aurkitu gintzazalako.

Nork esan ete eban, «Bilbao Alpino» onek ez ebala gaztedirik bazkideen artean? Bein baiño sarriago entzunak gara, baiña ori guzurtateko ez egoan sari banakuntza ortan aurkitzea baiño oberik. Eun eta amabost domiña, txoli ta beste sari eder banatu ebezan beste ainbeste mendiko leyaketa egindakoen artean, ta amabost sari «sky»zko leyaketa ta ibilkeratan irabazitakoen artean. Geyenak gazteak ziran, eta euron artean, gazte-gaztetxuak batez bere, neska-mutiko pospoliñak, Sei edo zazpi urtekoak be bai bat baiño geyago.

Benetan atsegingarria kirol garbi ori, mendizaletasuna, maite dogunontzat, gure zorionak «Bilbao Alpino»ko batzordekoai, gaztedi bikain orri mendi bidea erakutsi dautsalako, orretara obeto ezagutuko dabe gure lurralde maitagarria-ta!

Mendigoizaleen jai guztiak lez, bilketa anaikorra izan zan. Aupa «Bilbao Alpino»tarrak.

Eriotzea.—Izpar baltz bat etorri jakun Orrillaren 10'gngo eberdi inguruan. Ealo ta Ereño'tar Iñaki mendigoizale alai ta kementsua, Cruces'ko gaixotetxean il zala, azken aldian luzerotxoan gaixorik ibilli ondoren, berrogei ta amazazpi urtedun zala.

Iñaki, azkenengo amairu urte onetan Basauri'n bizi izan zan, bere emazte ta seme alabekin. Baiña jayotzez eta bizitzez be galdakanotarra zan. Kiroldar benetako ta orrein gaiñetik euzkotar jatorra. Kiroldar lez ainbat urtetan bere lengusu Iraragorri ta erritar Mandaluniz'en lez ostikolaria izan zan. «Galdacano»n jokatuten eban, eta gogotsu jokatu be, ta bere kemenagaitik-edo «Tan-(que» ezizenez oso ezaguna egin zan.

Ostikoketea itxi eban baizen laster, gaztetxu zanetik eban zaletasunean asi zan: mendirik mendi, arkaitzik arkaitz, aitz-zulo ta leza asko arakatuten. Itz laburrean gure lurralde maitagarria ezagutzen. Ta bere zaletasunez eta jakituriz, bazkideen autarkiz «Ganguren» mendizale bazkuneko Lendakaritzara jasoa izan zan. Ain zan maitekorra izan be Iñaki. Goyan Bego benetako kiroldar adizkide zintzoa.

ALTUNA'TAR JOSU

Txirrinketa Aroa

Txirrindularien leyaketa nagusiak, biak oraintxe doguz gaiñean, Gorenengoa TOUR sundia, 1903'gnean izan eban bere asierea, ta Garin arek irabazi lenengo aldiz.

Sei urte beranduago, «Giro» ori jayo zan, au da, 1909'gnean eta onako au, bertako Luigi Ganna'k irabazi eban.

Orrillaren 20'gnean, larunbatez, aurtengo «Giro» ori asia dogu, ta aurre iritxiz, Merckx gizandia izango ei-da irabazle diñoe eunetik ein eta batek.

Ara orain, leyaketa bi onein barri jakingarri batzuk: Orain arte, urte barruan, biok irabazi al izan dabezan txirrindulariak oneik izan dira: Coppi, Anquetil eta Merckx. Ona emen, erreskadan aldiaren jarraian nola ziran:

Fausto Coppi.—1949. «Giro»an lenen, Bartali bigarren zala, 23' ta 47" atzetik. TOUR'ean lenen, Bartali bera atzetik ebala 10' ta 55" atzerago.

Coppi berbera.—1952. «Giro»an lenen, Magni, bigarrenaren 9' ta 18" aurretik. TOUR'ean, Ockers atzetik, 28' ta 17" beranduago.

Jacques Anquetil.—1964. «Giro»an lenen, 1' eta 22" Zilioli'ren aurretik. TOUR'ean, 55", bigarren egin eban Poulidor baiño ariñago.

Eddy Merrckx.—1970. «Giro»an lenen, 3' ta 14", Gimondi atzetik ebala. TOUR'ean, Zoetemelk bigarren ebala 12' ta 51" atzetik.

Ta gauzak garbi ikusi daikeguzan, auxe geiago esango dogu: 1949'gnean Coppi'k ogetamar urte ebazan.—1964'gnean, bardin Anquetil'ek be. Ta, 1970'gnean ogetabost urte Merckx'ek.

PERTIKATSOLA

EUSKAL ARTZAIÑAK IPAR-AMERIKETAN

Jorraillaren 3'gnean 61 euskaldun, egazkiñ dotore batean ta Bizkaia'ko Diru-etxearen babesean Idaho'ko lurraldeetan dituezan senitarteko artzaiñak ikertzera bertaratu ziran. Ama-semeak... ta, pozez besarkatu ziran, alik ondoen illea igaro ta egunotan aberriratu iakuz barriro. Osterea guztiz atsegintsua izan iakenez datorren urtean be arako ibilladitxoa egitea gura leukee geienak.

Ta ango euskal-artzaiñen bizimoduaz zer desakegu? Bizimodu gogorrenetarikoa daroe. Bakartade negargarria egiz! Mille buruko artaldeak zaindu bearrean dagoz. Milletik gorakoak be bai sarri askotan, txakur baten edo biren laguntasunagaz soillik. Aste ta asteetan iñor ikusi barik. Bitxabaletatik urrin goiko mendietako oianetan ibilli dabiltz, ta dirauskuenez onen neurriko artaldeetan urtero gabetan batik-bat ara-onaka deslaituta eunetik gora buru ondatzen iakez. Beko zelaietako bizimodua errezagoa da, ta al ba'dabe artzaingoa zelaietan izatea nai leukee, ta onetara an daukien Bazkunari baimena eskatu.

Bazkun au ardi-ugazaben alkarte bat da. Ondo antolatuta bera. 1952'garren urtean lortu eban Laterri Batuetako agintariekandik euskal artzaiñak ona ekartea. Iru-lau urteko epea dabe lenengoz. Gero barriztatu leikee itun ori, ta aldiaz bertakotu be bai nai ezkero. Onela ugazaba izatera be eldu leitekez ta jakiña euskal-artzaiñak aurkitu oi dabez artzaintzarako. Onela euskeraz ta ingleseraz mintzaturik. Idaho inguruetan ia 30 milla euskaldun batu dira. Luzeanluzean lengo artzaiñen semeak ta birlobak jayo dira. Ez dabe ezagutzen ez Euskal-erria ezta euren aitait-amamak. Oneitako amama bat, larogeita iru urteekaz, oso pozik etorri iaku bere birloba ezezagunak ikusi ondoren.

Baiña arritzekoa dana da 30 mille amerikatar-euskaldun onek euskera mintzatzean biziro jardutea, ta Euskalerrian bertan zabarkeriz ainbatek euskereari ta euskal-gai ta kutsuzko arazoei jaramonik ez egitea. Euskal-sagarra erdi usteldurik daurkigu. Euskaldun artean be sagar-min ugariak ere tamalez idoro leitekez; gure anai arteko burrukak ori dagerre.

Oztopoak ayenaturik, ea xerto barria damotsogun euskal-zugatzari, sagar umatuak ezeze edozelango arnari bizikorrak, erruz izan daian, aurrerantzean euskotar-euskaldunak danetan ta euskera gaietan batez be baturik, aspaldidanik gizarteak ta Europa batuak gugandik ditxaron alkartasuna ikusi daian, gure endako betiko onoimenak ludi guztian agerturik txalogarri izan daitezan. Gure oingo egiñala ez da antxua izango, ez bein; aitatutako amamaren birloba euskaldunak bezela gureak bere, urte gitxi barru txalotuko gaitue, ain zuzen; ta gartsu txalotu be.

ARREGI'TAR JOSU

BERBAK UTSEZ

Gaurko gizakundean, berbak eritxi gitxi dabela, eskubidedun abotsak diñoe. Gaurko munduak itz-erabilkeri ain andia egiten daualako, itzen beera aldia dator, ta beraz, usteona galtzen dau gizonen artean. Ainbeste bidar lausengatuz, iruzur egiñik, gizonak ustegabean dagoz. Politika zabalkunde lanakaz edozein malmukatzen da, ta itz ederrenak guzur andiagoak eskutatzen dabez. «Demokrazia» arpegi-ordeko ostean totalitarismo gogorra ta gordiña ostenduten da. Eta zer ez dau barruratu, estaldu ta ixillean ebatsi «askatasun» berba ederrak?

Orregaitik, Anbata'ko gotzaiñak, Mons. Echevarria'k esango dau: «Gaurko munduak, egiteak eta ez esateak, bear dauz».

Eldu ete-da egiaren itzlariak itxiko dogun jakin-eraziteko aldia? Ori ez, baiña gaur bakotxaren berbaen ostean *egiketak* erabilli bearko dauz. Kristo'ren Barriona irakasten ba'dogu, lenengo Barrion ori *egiteratu* bear da. Itzaren bildaguntza (Apostolado) beti bear izaten ba'da, *egikunde* ziñalpearen beartasuna geiago bearko da orretarako.

Egitez, aspaldian, mundua eraldatutzen asi bearko giñan, itzaz mugatu ta adirazi bearrean, J. Maritain'en eritxiz «egiaren irakatsiak ez eutson Kristo'ri garaipen askorik emon. Ordeaz, Gurutzera eroan eban. Maitasunez irabazi ebazan arimak eta berari jarraitzera eragin eutsen. Guk be ez dogu beste biderik orreik irabazteko, Begira mixiolariei: Zelan, zeren bitartez biurtuten dabez siñezbageak Jaunagana? Euren inguruan zabalduten dabezan onegin, emoitza bitartez. Komunisten irakaskintsaz lilluraturik dagozanei, agertu ta erakusten dautsezuezenean Kristo'ren siñesmena ta maitasuna, oneraspen ta onegiñen eragille ta argitzaille diralako biurtuko duzuez; orrelango maitasunik ez dala idoro eta aurkituko iñun erakusten dozuenean. Ori diño Maritain'ek (Cristianismo y Democracia'n) Edt. Dédalo. P. 97, 8.

Gaurko gizonak teori, Kredo edo irakaspideak baiño egiketak eskatzen dabez geiago, eta Kredo izanik, egikundez izenpetua.

Oartzekoa da Lukas deunak Kristiñau-eleiza sortu barriaren kondaira idaztean, ez diñola «Bidaleen itzak», «Bidaleen egiñak» baiño. Izan be, onelango irakaspidez eskolatu ta jabetu ebazan Jaunak. Berari buruz, egiten eta irakasten asi zala, Barrionak diño: Facere... et docere... Lenengo egin eban, ta gero, abiadan, irakatsi. Entzun daiogun: «Euren igalietatik ezagutuko dozuez». Eta Jon deunak: «Semetxuok, ez daigun maitatu berbaz eta miñez, egiz eta egitez baiño».

Gaurko gizona egiketako gizona da; egiña ikusi gura dau siñesteko. Eginkundeak, ikustaldia be garaitzen dau. Baiña burzoro ta zorarazizko egiketea gura dabe. Aldi oneik jasan, eroan daben egiketea, siñaustea da; Pio XII'k mezutua.

Ez da arritzeko, ba, gaurko gizon egikunde-zaleak egiketea eskatutzea egia irakasten dabenai.

Gaur nai dana da egia egin, egiztatu. Ondoren zeatz, garbiak lortu ta jadetsi gura izaten dira. Berba batez esaterako, siñesteko, ikusi bear izaten dogu, Gaurko gizonak itzez esaten datorkienari au erantzuten dautsa: «Batera gagoz, adizkide, baiña ez daustazu berbaz egiztau bear, eginkundez baiño». Oraingo gizonak ondorenekin jokatzen dau, osteantzean gauzea okerturik egon daitekela uste dau.

Kristiñau izena daroanak, itzez beteta ta egitez utsik, erdi-siñisgabe baiño besterik ez da. Jainko-gabeak aspalditik egiñean dabiltz; gizonen famili-sendia, gizonen erri ta uria, antolatzen dabez, berba batez, gizonen mendutasun ta gizakundea. Jainko-gabeko mundu guztiko gizakunde au, gaurko gizonari ta etorkizunerako gizonari aurkestuten yakozan asmakizun-problema biziak erabagitzeko, aukeraturik dago. Gaurko Jainko-ukatzaillea ez da itzez bakarrik baita bere Jainko-bagekeri egiñetan be agiri da. Ez da ameslari utsa, pilosofo ta berba politen egillea; eginkari ziurduna be bai. Marx'ek iñoan: «ez egon munduari begira; albait-ariñen aldatu ta eraldatu bear dogu». Baiña askozaz lenago esan eban Kristo'k, esan dogun lez, «asi lenengo egiten, ta gero irakasten».

Euskaldunak, geienez, berba gitxikoak ei-gara. Augaitik idazlari erdeldun batek esan leikean: «Bizkaitar, berbaz labur, egitez luze». Alan ba'litz ederto.

LETONA

Arraintza Arazoak

Itxas gizonak beti alkar burrukan dabiltzala, batean edo bestean, sarri ikusten degu. Itxasoko lan latzak eragiten dituan kontuak dira oiek. Kantauri aldekook beintzat, beti bai dute zer esan.

Legatz zaleak bai dute beren KALA Bayona ta Ondarrabi bitarteko inguruan. Kala orretara joaten dira emendik eun ta geiago ontzi amuakin legatzak arrapatzeko. Prantzesek ordea, beti bezela arro ta nabarmen agertu dira aspaldi ontan.

Bi alderdikoak aintzat artu zuten, alegia, kala ortan ez legatzik arrapatzea ezpada amuakin. Baiñan, prantzesak ez diote jaramonik egin lege orreri ta, eurak legatzak sare ta palangre galeraztuekin arrapatzen dituzte. Emengo ontziak ori ikusirik, alako «huelga» egin dute ta ontzi guziak etxera etorri ta bear diran lekuetan ezarri beren naigabetasunak.

Zer esango degu ezta-baida orregatik? Legeak batetzeko egiten dira. Betetzen ez ba'dira, neurriak artu bear dira. Ori izanik biderik onena, geroko jokaera ikusteko gaude...

Prantzesak arraintzale gutxi izanik, alderdi ontakoakin konparatzeko, ta orrez gain, ontzi gutxi, ta beren kosta inguruetan izan arrairik geienak, oso arro agertzen dira.

Naiko ez dala, orain arteko ezta-baida bokarta kontuetan zan, orain legatz kontuak pil-pil daude emen Egun auetan bokarta ugari ekartzen dute, naiz ta eguraldi otz ta xitalak igaro itxasoan. Pentsa, Getari'ko Iñaki Laoz'ek igandean esan zidana: «Nere bizi guzian ez diat ezagutu olako otzik. Bokarta ontzi barrura sartzen ari gerala, arrayua, kaskabarra ta guzi».

Orratiokan, sei millatik kanpora arrapatzen dutela-ta, orretxen lasaitasuna bai dute orain. Ala ere, naiz ta asiera txarra izan aurten, ba'leike orril ontan osoan zerbait irabaztea. Ainbeste ontzi dira! Ez jakin guziak kostera onik egingo duten. Gure nai bizia, guziak ugari arrapatzea da.

* * *

Canarias aldetiko izparrak diotenez, emengo bi ontzi euskaldunak atunak ugari arrapatzen dituztela irakurri det. Ori orrela dala jakitean, geitzerdi, baiñan okerrago da irakurtzean, alegia, japonesak alegiñak egiten ari dirala Arrezife aldean beren industri bat antolatzeko. Japoitarrak garbi ikusten dute alderdi oietako urak oso aberatsak dirala. bateze atunetan. Konserba ta latetan jarri atunak ta gero Japoi'ra eraman nai dituzte.

Japoitarrak ez dute emen arrairik saltzen, beren ontzitan maniatu ta gero Japoi'ra eraman. Zer gertatzen zaie emengo ontzieri? An dauden bi edo iru eroslek nai duten prezioak ordaindu, irabazpenak erosleentzat eta ez saltzailleentzat. Gero esango dute emengo gauzak beti atzeratuak daudela, kanpokoakin berdintzeko beintzat...

Ortako laguntasuna bear dute emengoak, bear diran bezelako konserba lekuak jarri ta bateze diru geiagoz ordaindu atuna. Dakiguna da, igazko urtean atunak oso gutxi ordaintzen zituztela an dauden iru eroslek. Nola orduan, aruntz joateko gogorik izango emengo arraintzaleak? Emen Gipuzkoa'n, Bizkaia'n, Montaña, Asturias ta Galizia'n, ongi daude antolatuak konserba lekuak. Orren palta aundia izan ordea Canarias aldean. An gauzak bear diran bezela egingo ba'lira, emengoen antzera, orduan emendik zabalduko lirazke ontziak, ta itxasoa ain aundia danez, guziak leku geiago izango lukee arraintzan egiteko. Ez orain artean bezela, emen alkar joka ta burrukan lekurik gabe.

Agintariak egundako laguntzak eman zizkioten arraintzaleeri, alegia, erreztasunak ontzi berriak erosteko. Zergaitik ez dute ere konserba fabrikak egiteko biderik artzen? Zer ikusten da Canarias aldean, ekarri arraia ugari ta gero salmenta parregarriak ordaindu, poltzikoak beterik erosleak... irabazpenak bi alderdientzako izan bearrean.

* * *

Aurten emengo ontziak legatza arrapatzeko modu berriak asmatu dituzte. Orain arteko arraiketan geien arrasteroak beren sareekin arrapatu oi zuten. Oraingo asmaketa ori aparejuak bost edo sei amokin bota, karnata goxoakin palangre antzera, ta urrutiko kalan. Pentsa, Gran Sol'eraiño joan, eta botatzen dituzte boiakin ta gero, andik denpora gutxira, barruratu aparejua. Bai dira emen Donosti'n milla, bi milla, ta geiago kilo legatz arrapatu dituztenak!

Beti ikasten daude arraintzaleak! Sareakin, amuz edo palangrez. Guzia da ugari ekartzea.

Zer esango degu guk erosi ta gero jan bear degunok? Garesti daudela, nola legatzak, bokartak edo atunak, Ba-dirudi angulen antza dutela! Zergatik ote da gertakizun au? Nere ustez, gero'ta jende geiago gaudelako ta arrai gutxiago arrapatzen dalako, besterik ez. Arraia, mokari goxoa agertzen zaigu ta, Malaga'ko lur sagarrak jan bearko ditugu. An diotenez, saldu eziñik daudela dioten berriak ditugulako...

E. OZKIN

«Etorki»k Poto-Unea

Aurreko idazkian «Jornal do Brasil»ek argitaratu zuan orri bereziaz mintzatzen nintzaizuen. Orri ortan «Uma música diferente» izenpuruaz eresi arloan berezitutako Renzo Massarini jaunak Jesus Guridi'ren lanak bere luman ditu, ta argitu Etorki'k bere egitarauan ba-dituala onen abesti batzuek. Usandizaga'ren Operak eta zarzuelak, ere aipa. Baita gure musikalari Andres Isasi, Beltran Pagola-Goya, Vicente Garay-Arregi eta Pablo Sorozabal, euskaldunak bereziaz.

Bidasoaz aruntzkoen ta onuntzkoen xeetasunaz mintzo ondoren kezka sortu zaio idazleari, onela galdetzen bai-du: «Mas, afinal, Etorki vem de Espanha ou de Franca?»

Eta kezka au nolabait uxaturik España eta Frantzia'ko enbajadoreetara dijoa, luma eta paperak artuta. Eta España'koak onela argitzen dio: «O folklore regional espanhol é constituido por cantos e dancas de modalidades diferentes; os bascos usam uma sua caracteristica tipica: as recitaces dos bersolaris, os bardos». Eta, «A embatxada de Franca esclarecen que «os bascos comstituen um dos raros grupos étnicos que conservaram vivas suas tradicoes». Kezka ez zaio uxa, au dionean: «Oraindik, zer dira?»

«Etorki»k —gero dio— gure artean ezezaguna zaigun arte bat azalduko digu».

Urrengo egunez, ikuskizunaren ondoren: «Abestaldea izango berezitasun gutxienik duan zatia, bai baiñan atsegiñena. Ez dute bertsolaririk, baiñan bai olerki zaar eta errikoia, kalidade onekoa eta lilluragarria. Dantz urratsak, instrumentoak (flauta gozo antzeko batekin asita, gozotik ez ba'du ezer bai ordea ernagarria (dultzainagatik dio). Abotsak ongi lotzen dira ikuskizun polit eta garbietan, sinkronizatuta ea beti».

Baiñan gauz guztiak beti-beti ezin ongi atera. Jorrailla'ren laugarreneko «O Globo»k onela bai-dio: «Emakumeak politak dituzute «Gizonezkoak kementsuak, ariñak eta ikasiak. Gaizki asi zan guztia baiñan. Laguntzaille zuten erresia asi zanean, grabatutakoa, zarata gortzailleaz, antzokiko oiala altxa zuten, eta taldearen aurkezpenerako sarrera antzoki erdian zegoanean, bat-bateko ixiltasuna, ea mingarria, txapeldun aiek ixurtzen zuten alaitasuna ebaki zuan, ta taldea bizian ezegin zan, zigortutako gudaroztea bezela («como exercito vencido»).

Antzokiko elektro-akustika errena irten zan. Izlari batek: barkatzeko. Orain, plateak, bat egin zuan bixitalariekin, Teatro agintarien aurka»... mas, apesar da onda simpatia, o espectáculo cuase naufraga na primeira parte do programa...»

Baiñan poto-une au, tamalgarria alde batetik, bigarren zatirako zuzendu zan. «Os melhores momentos» —dio— «foram aqueles confiados aos instrumentos típicos; o veneravel txistu, que tocado por un virtuose como Gotzon Larrañaga, exerceu amplos poderes de seducao...» ...«o público fez bisar 'Ai, Mari Migel' (lau abotsetara) e apaluditu muito os tocadores de 'Alboka' e 'Txalaparta'». Jakitekoa da nola ikusten ditun: «Alboka, urrutiratzen dijoan itxasontziaren soiñua; Txalaparta, afrikatarren tamtam antzeko bat, baiñan biziagoa».

«Egin potoari (pequenas inconveniencias) begiak ixtea pena balio duala-dio— belarriak ongi zabaltzen ba'dira txapelezko folklore apain ta gardenak dituan edertasunari.

UXOLA

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

Apartado 1.510 **BILBAO**

Izen - abizenak .....

Bizibidea ta lana .....Urrutz .....

Zuzenbidea ..... Urrutz .....

Erria ..... Eskualdea .....

Bidali egidazuz arren reenbolsoz jasotzerakoan ordaintzeko / illeroko amabi epetan ordaintzeko (1)

- ☐ AZKUE'REN IZTEGI NAGUSIA (Ale bi)
- ☐ LABAYRU'REN BIZKAI'KO EDESTIA (Amar ale)
- ☐ GOROSABEL'EN GIPUZKOA'KO JAKINGARRIAK (Lau ale)
- ☐ AZKUE'REN EUSKAL ABESTI TXORTA (Ale bi)
- ☐ EUSKALERRI'KO EDESTI-LUTELESTI IZTEGIA (Ale bi)
- ☐ LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA (Ikusgarriz betea) (Amar ale)
- ☐ R. I. E. V. Euskal ikasketen bildumea (26 ale)
- ☐ MORET ETA ALESON'EN NAPARROA'KO EDESTIA (Zortzi ale)
- ☐ KEREXETA'REN ARMARRI TA IZENEN IZTEGIA (Lau ale)
- ☐ EUSKAL GIZA-IKASKINTZA (Erriarteko lenen...) (Ale bat)
- ☐ GIARD'EN BILBO'KO EDESTIA (Lau ale)
- ☐ MOGEL'EN PERU ABARKA (ele bitan) (Ale bat)
- ☐ GARMENDIA'REN ITXAS IZTEGIA (Ale bat)
- ☐ CALERA TA BUSCA'REN EUSKAL SUKALDEA (Ale bat)
- ☐ BILBO'KO ATHLETIC'AREN EDESTIA (Ale bat)
- ☐ LAFITTE'REN AZKUE-IZTEGIARI EZARKETAK (Ale batzuk)
- ☐ Euskal Jakintzadun idazti onein edo batzuen barri nai neuke jakin bakarrik

OARRA: Idazlan bakoitzetik ale guztiak erosi bearko dira, ta ez da onartuko bakoitzetik ale banakak erostea, eskatzean ez ba'da bestera azaltzen.

NOIZKOA: IZENPENA:

(1) Zear-marratu nai ez dana.
Illeroko ordainketak ezin izan 200 laurlekotik bera.

BATA TA AMABOSTA

Maietzaren bata. Beargiñak sortu eben, bearra goratzeko egun au. Ta egun onen izenak ta bizitzak, beargiñak, euren langille izatea, zintzo zaintzen daben bitartean iraungo dau. Beargiña aberaskerietan sartzea danean, maitzaren batak bere zentzuna galduko dau.

San Isidro eguna baserritarren egunа da, ta iñoz ez dot ezagutu geure baserriko jendeari dagokion eran, gogotsu, bizi, ametsez ospatzen. Aldra batek jai artzen ba'eban, gaiñerako guztiak euren baserri bideetatik ebiltzan. Baserritarrak eurak ez eben sortu eurentzako egunik.

Egia da, baserri bizitzak beragaz, beti, eroan izan ditu zerbait norberekeri ta jauntxokeriaren indarra, basetxe txiki zabalagoak banatuaz. Baserri lanak berak berez dituan arloak direla-ta, iñoz ez dau izan, gure baserri giroak euki bear eban alkartasunik. Ori dala-ta, gure kontura, zabal-zabal ta maltzurkeriz, barre egin bear ebela uste eben, bai aundiki jauntxoak ta, bai kaleko bizi-lagunak eurak be.

Baserritar euregandik aparte, baserri lana ta nekea, noraiñokoak zirenik, iñork ez dau ikusi, ta sarritan, etxean bertan dagoz anaiak saltzeko gertu dagozen anaiak. Era orretan ba, amaitzera doakigu geure sortetxeko lengo bizia.

Gora-bera ontan, kaleko langilleak bizkorragoak, beti izan dira ta zurrago jokatu dabe, ta eurentzako egoki dan eguna jarri dabe mundu guztian. Egun onen esan-naia, iñoz ez dot ikusi ta artu ikarakor bezela. Berezko legean dauka bere oiñarri ta indar guztia.

Gizonak jaiotzatik dakar irarrita ezaugarri gogorrez, «zeure izerdiz, lan eginda, janarituko zara». Lege onen aurka joateko eskubiderik, iñok ez dauka. Ta alan ta guzti be, gizona, lege ori apurtzen, sarri ausartu da.

Lege orren austeak asarreak sortu zituan gizartean, ta ez edozelakoak. Gizadi zati aundia dago gogorkeri orren menpean mindurik amorratuta. Nai ta nai ezkoa izan dau ba gizon azpiratuak zurtu bearra ta batasun bidean alkartutea. Au gizonen eskubidea ta jokera jakiturizkoa da. Ortik etorri dira gizonak euren eskubideak eta bizia zaintzera ta langilleen egun au mundu guztian sortzera.

Egun onen esan-nai guztia biziaren barru-barruan dago. Berez dau gizonak lan egin bearra ta langilleak, bere kidekoekin alkarturik, zainduko ditu bere biziaren eskubideak.

Baserritarrak be euren bizia, era berean, tajutu bear leukee. Orduan, ba'leiteke, gure baserri lugiñen bizia indartsuagoa izatea.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

ERRIETAKO BARRIAK

Tolosa

Laugarren Abesbatz Leiaketa.—CIT'ekoak, Lorailla'ren 8'garenean erderaz egindako idazki bat eman didate. Gai onetaz berri geiago ematea agundi nizuenez, idazki ori euskeraturik emen dijoakizue:

«Sari Emaillea.—Dotación de Arte Castellblanch, Sari Berezia.

Arauak.—Xeetasun guztiak ea erabakirik daude. Lenbaitlen bidaliko zaizkie abestalde guztiei. Auek ikusirik abestaldeak eskatu ditzazkete beartuko diran lanen partiturak (abots naasikoenak baita berdiñekoenak). Idatziz egindako eskariak jaso bezin laister bidaliko zaizkie.

Xeetasun auek aurreratzen ditugu:

Noiz?—Urrilla'k 30 eta 31, eta Azilla'ren lan. Lenengo bi egunetan arratsaldetik. Azille'koa goizetik, emen bukaera eta sariak emanik.

Nun?—Beste urteetan bezela Tolosa'ko LEIDOR ANTZOKIAN.

Nola?—Igazko saialdian bezela bi motetan banatuak: abots-naasikoak batetik, eta berdiñekoak bestetik. Beraz, beartutako lana, ezberdiña izango dute.

Sariak.—Abots-naasikoak (gizonaz eta emakumeaz osatutakoak)

1.ª	Urrezko domiña . .	ta 50.000 laurleko
2.ª	Zillarrezko domiña .	ta 30.000 »
3.ª	Brontzezko domiña .	ta 20.000 »

Abots berdiñekoak (naiz gizonezko naiz emakumezko)

1.ª	Urrezko domiña . .	ta 50.000 laurleko
2.ª	Zillarrezko domiña .	ta 30.000 »
3.ª	Brontzezko domiña .	ta 20.000 »

Eratzailleen laguntzak.—Igaz bezela, joan-etorriak laguntzeko, 2.000 lauleko ordainduko zaio 125 kilometro baiñon bertagotik datozten abestalde bakoitzari. 125 kilometro baiñon urrutigotik etorriko diranei Eratzaillen bizkar joango da lo-tokiak edo ocak ordaintzea».

UXOLA

Galdakano

ANTZEZKIZUNA

Orrilla'n 6,gn gabean euki genduan antzekizun polit bat erriko «Regio» igelezketako aretoan, baita be erriko Abesbatza taldeak edo «Grupo Coral de Galdacano» (ze min emoten dauskun izenarrietan izen ori gure errian entzuteak) antzeztuta eta Eresbatzaren laguntzaz. Antzeztu eben antzerkizuna, gernikar Iriondo ta Makazaga jaunek egindako «Amatxu» gaztelerazko antzerkia izan zan. Esan dogunez, gazteleraz idatzite aurkitzen da idaztiñu ori, baiña eusko giro mamintsuan idatzita. Ez dago esan bearrik batobat ausartuko ba'litzake idaztiñu ori euskeralduten, ta ez deritxat gaitz, geralpenik andienak lortuko leukez euskerea zerbait mintzatzen dan errietan.

Aintzakotzat eukiten ba'dogu, antzerki zaletasunagaitik bakarrik aurkeztuak zirala antzeelari guztiak, ederto ikusi genduan bakoitza bere egiñkizunean, gure ustez oneitara asita: «Patxi» bere egin bearrean, ondo baiño obeto, beren lagunekin bailebil lez ibilli zalako antzeztokian; «Amatxu» anderaño au be ederto baten: «Jose Ramon» bere abots ederra kementsu entzunazoaz, naita txukunago arritan entzun ba'dautsagu be; zer jazo zan Josu?; «Maite» bere abots zoli argia ta bere lana ondo bideaz; «Anton» bere esakera ta egikera zorrotzaz; «Julita», «Txomin», txistulari, dantzari, abeslari ta zetan esan bez Abesbatza, Moreno jaun'aren zuzendaritzapean, gauza entzungarria dalako.

Antzezkizunaren amaieran Iriondo ta Makazaga jaunak antzerkizuneko zuzendari Tuto-Izagirre lagun ebela antzertokian aurkeztu ziran, oso txalotuak izanik beste ertilari guztiak legez. Ea laiste antzezkizun bikaiñ bat noiz ikusten dogun, baiña euskeraz.

ERIOTZA


Orril onen 3'gnean Itzaga'ko basatxean Landa'tar Gergore il zan, Petralanda'tar Jon'en alargun zintzoa ta Lin, Jone, Joseba-Koldo ta Josu anaiarreba euskeltzaleen ama, larogei ta bi urtedun zala.

Itzaga'ko baserriak, bi eurek, erri-erditik aurki dagoz, Ibaizabal ibaiaren eskuma aldean, lurralde mamintsuetan oiñarrituta! Gure gazte aldian be ospatsuak ziran basetxe oneik, bertan sarritan ikusten zalako txakolin mingotz baiña gardena. Basarri areik erti aldetik be ba-dabe euren zerbitzua-ta, ortik edo orregaitik bertan ikusten ziran aldi baten argazkilari ta margolariak be etxe arein argazkiak edo margozko laukiak egiten eta, orregaitik ziran ain ospetsuak. Goyan Bego bertako etxeko-andera zintzoa ta lagun gaitue atsekabean bere seme-alaba ta ganetiko sendikideak.

BASA-JAUN

Ondarru

NEURE ERRI TA ERRITARREI, GAURKO GIRO ASTUN ETA BIURRI ONETAN



Ondarrun jaio nintzan,
Azi be Ondarrun, (berriz)
Bizirik geiena be
Pasa emen barrun.
Iñoiz ibilliarren
Zuregandik urrun,
Beti zeu izan zaitut
Ongille ta lagun:
Iltzerik be ez neuke
Nik nai beste iñun!

Oi, neure erri eder
Usaiñ Kresalduna, (berriz)
Arrantzale jatorren
Toki ezaguna.
Len, orain, eta beti
Biotz aundiduna.
Ekaitz denporaliak
Artzen dakizuna:
Arren ez galdu zeure
Kemen ta zentzuna!

Arnas-aize batzuek
Nundik etorriak (berriz)
Ez jakin, ez eta ere
Zeiñek ekarriak.
Zuri, gorri, orlegi,
Len ziran tokiak
Iraultza bidez oraiñ
Jarri nai gorriak:
Kutsu onen bearrik
Ez du gure erriak!

Arranondo izenez,
Ainbat urte dala, (berriz)
Bateatu zinduzan
Idatziz «Kresala».
Ondarrutar izarra
Uraxe bai zala!
Gu ere bere bidetik
Ta bera bezela:
Urrutira joateko,
Boga mariñela!

«Boga», bai, mariñelen
Ondarru maitia (berriz)
Biotz suturik «kanta»
Zeure abestia.
On-osasun, ondasun,
Sendi donetsia,
Itxaso, portu, ondartz,
Egoitza eztia:
Zugan daukazulako
Zorion guztia.

Zugan bizi nai nuke,
Ill ere zurekin; (berriz)
Ondo Eleiz-Amaren
Grazi doaiekin.
Eta zeruan bildu
Neure lagunekin,
Aurretik juan ziran
Zar ta gaztiekin;
Gozatzeko Jainko ta
Lege zarrarekin!

AITZONDO

Bolibar

Gipuzkoa'ko Bolibar'etik diardut. Ez da iñor Bolibar'ko Atxorrotx ezaguten ez dauenik Euskalerri osoan. Euskaldun zaarrak berton bizi izan zirean urte luzeetan. An arkitu izan dabez beiñepeiñ arri-aroko aztarren ugari. Gerora, gaztelu aundi bat egon ei-zan berton. Gaur, Gurutzearen eliza eder bat daukogu ta Orrillaren lenengo igandez jai ederrak izan daroaguz.

Aurten be baita. Egun eder-ederra ganera, udabarriko egunik ederrena, uste dotanez, eta inguruko errietatik ez-eze, Aramaxo, Bergara, Oñati ta beste urriñeko errietatik be asko ikusi genduzan.

Amaiketan erri-mezea, eleiz aurreko zelayan, barrenean lekurik ez ta. Meza-emoille ta berton izlari, Loyola'tik etorrita, Aita Zubiaga izan genduan, urtean-urtean egiten dauanez. Itzaldi sakon eta mamintsua entzuteko zoriona izan genduan. Meza bitartean, Bolibar'ko D. Gurutz Abarrategi, abade jaunak zuzendurik, ederto abestu eben entzuleak. Eta Eskoriatza'ko txistulari trebeak Meza erdikoan «Agur Jauna» jo euskuen.

Gero eskoriatzar dantzariak bikainki dantza sail bat dantzatu eben. Txalo ugariak irabazi be baita. Ondo irabaziak ganera. Gauzatxu bat etxatan atsegin izan. Ume ta neskatillen artean, batez be, Cervantes'en berbetea besterik etzala entzuten. Eurei entzunda, etxakon antz-emoten Atxorrotx'en gengozanik be.

KURUA

Belutxo aurten agertu yaku. Ez geuntzala entzungo ustetan gengozan. Entzun dautsagu azkenean eta... eunen bat lauerleko besterik ez geunkala zoriotxarrez entsun be.

ORRILLA

Berari dagokion eleizkizunak eguneanegunean egiten doguz gure eleizan. Gaueko zortziretan Mezagaz batera. Eta, tire!, pillotxo ederra batuten da.

IL BARRIA

Dogu geure erritar bat. «Otzaibe» baserriko Blax Agiriano, gure aizkide on eta maitea. Erri osoa izan zan eleizan bere illetetan. Etzan bape arrituteko, izan be, guztiak orren maite eben Blax etzan nor-nai ta.

Bere etxekoei emendik gure samin agurrik biotzekoena eskeintzen dautsegu. Irakurle, otoi bat. G. B.

ESKORIATZAR

D. Nikolas Madinabeitia, ainbat urtetan bertoko Parroko izana, gexoak eraginda, erretiretan dala entzun dogu.

Min aundia emon dausku barri onek inguru guztietan danak oso maite geunkon abade jaun au galtzea, asko galtzea dala ikusten dogu-ta. Ez dogu uste urriñera joango jakunik. Alan izan daitela. Eta ondo irabazirik daukon atsedenak osasunari lagun deyola!

ATXORROTX

Deba

Bost urte miziolari Venezuela'n igarota etxeratu zaigu Egaña'tar Mikel apaiz gaztea, emengo «Urasandi» etxeko semea. Bete-betean etorri ere, bere illoba Mikeltxo'ren Lenengo Jaunartzearen egunerako, eta esan bearrik ez da sendian, bata ta besteagatik, ondo ospatua izango zala. AGUR'en bidez, nere ongietorria ta zorion-agurra.

Ez dakit zer asmokin etorri zeran zure txokora Mikel, emen gelditzekotan ala berriz aruntz biurtzeko. Baiña ara zer esan nai dizudan: Jaungoikoa norako zauzkan zeuk dakizu, Baiña... au gure zoritxarra...! bada Euskalerrian ere, zorigaiztoz mixiolari bearra, fedearen aldez non lan-egiña. Nola nai. berriro dizut ongietorri ta aita-ama ta sendiakin ondo izan, ainbeste gogoan, urruti oietan, izan dezun zure jaiotetxe «Urasandi»n.

Guztiak banan-banan ezin aipatu, baiña nere zorion-agurra Lenengo Jaunartzea eginberri diran umetxuai ta euren gurasoai. Guzti oien etxetan betiko iraun dezala egun eder orretan gozagarri izan zuten Kristo'ganako siñismen, eta Bere eskarra.

* * *

Urte askoan Venezuela'n bizi diran Felix Irizar eta bere emazte Maria Elosua, beren urreeztaiak ospatzera etorri dira. Senar-emazte Deba'ko auek, Itziar'en ezkonduak dira, alkarrekin berrogeta amar urte osasuntsu igarotzeko eskerra Jaunak egin diotenez, emen etorri zitzaizkigun, Itziar'en Ama Birjiñaren oiñetan ezkondu ziranez, urrezko estaiak bertan ospatzera.

Gure Ikastolako andereñoak ez dute kupirarik Kristo'ren fede-aldez lan egiteko, ta an izan ziran Itziar'en euren ume taldeakin Irizar jaun andre oien Meza abesten.

Egun ori ta beste geiago eman igarota, alde bietako senideekin egun onak igarota, ba, eztai egun orretan Salegi jatetxean eunda ondo geiago bilduak ziran eta... oi dana, joaterakoan, familiko adiskide ta Euskalerri osoa utzi bearrak malkotan ipiñi ba'ziluzten ere, an joan ziran barriro Venezuela'ra euren seme-alabak besarkatu ta eraman dituzten zer-esan ugariak pozez edestera.

Ez aiztu gurekin, eta... agur betiko...! Jaunaren Zorionean alkartuko gera berriz.

* * *

Il berri degu, Elosua'ren Korostota'tar Petra andrea. Adiñ aundia zuan 88 urte baiña orain gogor azaltzen zan. Ala ere gaxorik asko luzatu gabe il da. Kristau zintzo eta euskelzale jatorra izan da beti. Goikoak sarituko zuan. Bere senar Esteban alaba Itziar eta onen senar beiñolako PATRI futbol-jokalari ospetsuari ta auen seme-alaba, ta beste senide guziai, gure samin-agur zintzoena eskeintzen diegu, otoiez batera.

ANTZIÑAKO

Zestua

AURRAK JOLASTU EGIN BEAR DU

Zenbait erriko etxeetan, maiz entzun oi izan dugu, aurrak amari esaten diola. Ama, emen etxe barruan aspertu egiten naiz.

Gurasoak jolastera biali nai dituzte. Baiña, oraindik jolasteko tresnarik ez duten erri batzuk, zoritxarrez, aurkitzen dira. Egoera au ikusirik, gurasoari galdera bat sortzen zaio. Aurrak jolastera nora biali?

Ama, etxean geienean lanean ari bear ta aurren jolasak, zalapartak, deadarrak negar-karraxi etabar. Zarata auek danak, ama bere onetik ateratzen dute.

Autrentzat jolastea, oso garrantzizkoa da. Aurrak, bere soiñean duan bixitasun eta bizkortasunarekin batera, jolastu, bear du. Idurikor dan pentsaera bizitzarekin, ez du ezer egiten, egiazko amets biurtzen ez ba'da.

Aur batek Tarzan'en edo onen antzeko «pellikula» ikustean, ikusten duna, egin nai izaten du. Jolaseta bearrezkoa dualarik, bere kiriotza oraindik bear dan bezela ikertu gabeko, aurraren soiñaren egiturak, jolastera bultzatzen du.

Aurra exerita ta jolastu nai ezik baldin ba'dago, ezagun osasunez ondo ez dagoena. Beraz, aur ori, isagille batena eraman bearra dago.

«Sikologoak», «Pedagogoak», jostaillu egilleak etabar, Auen lanak, aurraren eziketarako zer ikusi aundia dute.

Jostailluak, xede ta asmorik inenakon egiñez, aurrak jolastuaz, ezitzeko bide oberik eziñ aurkitu. Aurrak jolastea nai ta naizekoa danez, agintariak eta gurasiak kezkatu ditezela, ta aurraren jolasak zurtatu ta piztu ditzatela.

Agintariak batez ere, maiz erriko beste arazoaz kezkatzen dira. Arazo oietaz kezkatzea ongi dago, baiña, aurraren jolastoki, ta zer eratako jostailluaz, ez dira arduratzen, eta aurrak ez daki nun jolastu.

Gurasoak uste izaten dute, aurra jolasteko etxeko lo-gela bat aski duela. Ta igandeko erri ingurura egindako ateralditxoarekin, aurra indartzeko, ta osasuna sendo ta aunditu ta gizontzeko, naikoa dala.

Adibidez, erri guzietan bai gurasoak eta agintariak, jolas-toki bat antolatzera beartuak daude. Orain, arrisku aunitz dituztela ikusten dugu; baiña uda-aldian, askotaz arrisku latzagoak dituzte, ta aurrak jolastera, nora jaonik ez dauka.

Garrantzizko arazoa danez, ta kezkaturik gaudenez, zuzendu ta erabaki bezate.

JOSEBA

INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

Euskal Erriko ospetsuak

andoain berrozpe

AMA KANDIDAREN SORKIZUNAREN EUN URTE BETEA

Jesus'en Alaba Kandida. Juana Josepa Zipitria Barriola. Zipitria Barriola'tar Juana Josepa, 1.845'garren urtean orrillaren 31'an jaio zan Gipuzkoan dan erri jatorrean, Andoaiñ'en. Kale Txiki deitzen genion kale ortako Berrozpe etxe zabalean. Bere aita Juan Migel; Ama berriz Maria Jesús: biak andoaindarrak. Sei alaba izan zituzten. Zarrena gure Juana Josepa au: urrengoak, Iñazia-Josepa, Prantxiska, Sotera, Dominika, eta Anjela. Anjela'k bere aizpa zarrenari jarraitu zion eta Ama Kandida il zanean bere ordeko gelditu zan.

Danok dakigu 7 urte zituala Tolosa aldatu zirala eta bere lagunakin bat egiñik loreak bildu sorta egin eta Birjiña Amagana joaten ziran eskeintzera, Agur erregiña errezatuaz. Beretzako jolasketa onena beti, lekaimien alkarteak eratu eta zuzentzea izaten zan.

Txiki ta gaztetako urteak utzi eta itz batzuek jarri nai nituzke gure Juana Josepa nor zan, eta bere nortasuna adierazi, batez ere bere bizieran berri ez dakitenai.

1.862'garren urtean, Ogei ta sei urte zituela Salamanka'n Jesusen Alaben sortzaille izan zan. Ama Sortzez Garbiak adierazi zion aurrerakoan bere izena aldatu bear zuela eta deituko zala Jesus'en Kandida, ta orrelaxe deitu diogu beti.

Esan bearrik ez dago gora-bera eta burruka aldi aundiak izan zitula, baiñan, ain zan Jaungoikozko emakumea, neke guztiak bere bebespean eta bere laguntzarekin arintzen zitzaizkion, orregatik esan oi zun: «Ni Jaungoikoarentzat oso osorik». 42 urte bizitu zan Jesus'en Alaben buru izanik eta esaten zun, une guztiak beti izan zirala Jaunarentzat. Beste ametsik ez zuan. On egin, ikastetxeak iriki, umeak ezi eta bere kezka guztiak ziran, gaztediaren eziketa.

Xamur zan beti gazteentzat, baita ere artzaille, entzule urteak aurrera zituenentzat. Emakume argia bere erabakiak artzeko. Ain zan argia, berialaxe ikusten zitun zer eragozpen ekarriko zizkion esku-artean zerabilzkian eginkizunak. Baiña beti aurrera. Jaunaren aintzarako ta gizonen onerako. Orduko euskaldun jatorra bezela bere ziñismena indartsua zan, esan bearrik ez dago, ziñismenik gabe ezin litekela aurrera eraman orrelako sorkizuna.

Itxaropenak gaiñez egiten zion. Etengabeko buru-auste, lan, naigabe aiek goi doaiez betetzen zitun, iñork ez bezela. Ain zan azkarra. Maitasunean biotz aundikoa. Bertakoak eta urrutietakoak, beltzak eta zuriak danak zerurako, danak Jaunarentzako. Ortaz, beretzako ludia txikia iruditzen zitzaion. Izkuntza guztiak maite zituan; «Ikasi al dituzuten geienak, baiñan bakoitzak ez aztu Jaunak sortzetik eta zure amagandik ikasi dezuna. Toki bakoitzean berea da berexiena. Maite bada, zure jaiot erria, Jaunak orixe nai du».

«Txina'ra, edo atzerrira joaten ba'zera egin zaitez ango eta euskaldun asko antxen dauzkagu auxe argi eta garbi betetzen. Baiñan emen bizi ba'zera egin zaitez bertako».

Kandida Amaren irudiaren berri Garzia Alkalde aitak dio:

«Salamanka'ra etorri zanean ezagutu nuan. Gorputz sendoa zan, luxe xamarra ongi eratua, bizkorra, liraiña, azal gorrantza eta osasuntsua. Gerora ere bere burua laztasun eta ilduraz akitu arren, ainbeste iraun zion bere izaera arrek».

«Begiratu bizi ta sarkorra zuan. Gogoa Jainkoti, erabakia zuzen. Biotza aundi. Oso jendekikoa».



Bere leuntasun eta gozotasun bereziz, inguruko eta arrotzen biotzak irabazten zituan. Gauza geiago idatziko nituzke baiñan gaurkoz naikoa, da, beste baterako utziko ditut.

Salamanka'n daude bere eskutitz ugari eta berak egin zituen gauza guztien berriak. Laister zabalduko al dituzte, an, giltzapean euki gabe gure euskaldun jatorra dan Jesus'en Kandida'ren gora-bera guztiak.

BERROZPE

Zuaitz eder bat jaio da Berrozpe'n. Zuaitz indartsua egin zaigu. Adar sendoak bota ditu. Adar oiek beste adartxoak bota dituzte, eta guztiak ostoz beterik itzal ederra ematen digute.

Orra emen gure Juana Josepa'ren irudia. Zuaitz ori Jesus'en Kandida da. Adar sendoak berriz... Zipitria Barriola'tar Anjela 1.912 ezkero (bere aizpa). Andres'tar Eloisa 1.924 ezkero. Inibarren'tar Madalena 1.936 ezkero. Larrañaga'tar Bakarne 1.953 ezkero. Santos'tar Vitoriana 1.965 ezkero. Zamalloa'tar Karmele 1.971 ezkero.

Ikusten dezuten bezela gizaldi batean zazpi zaindari, eta zazpietan bost Jesus'en Kandida Amaren lurrekoak, Euskaldunak. Adar sendoetatik; Adartxoak irten dira; Guztiak ostoz baterik; Elizaren babespean arkitzen dira; Osto ugariak, gure ikastetxeko neskak dira; Gaur Jesus'en Alaben sorkizunaren eun urtean, zerurontz otoitz, eskerrak emanik.

Guztiak bat egiñik; Sorta eder bat korapillaturik; Bere asmoa aurrera eramanik; Eskeñi dezaiogun; Zugaitz eder ori elizari, Eta bizi gaitezen beti Kristorekin bat egiñik.

ERRASTI TOLEDO'TAR NEKANE

Filolojiazko jardunak X

AZKEN-IRITZIAK

Filolojia baiño geiago filolojilariaren azken urteetako urratsak aitatuko ditugu emen. Pompeu Fabra politikaren arazoetatik urrutiratua bizi arren 1.934*'garren urtean gertatutako matxinadaren zipristiñak beti-betean arrapatu zuten. Eta Bartzelona'n «Uruguay» ontzian atxiloturik euki zuten aste batzuetan. Gaztendanik ederki ezagutzen zuan bazter ura! Erbestetar itsas-gizonekin mintzatzen ikastera aren adiskide Ziburu' kin, joan oi zanekoa. Laister azkatu zuten presondegitik eta berriz lanean asi zan.* 1.935*'ko ikastaroan Ateneoan itzaldiak eman zituan. Universidadeko bizitzak arduratzen zuan, bereziki, ta gerrateko urte ankerretan ere eten gabe ziardun pake aldian bezelaxe. Egunero, ala izan zuanean, bederen, Institut d'Estudis eta Universidadeko lan gelara.*

Zein sakona zan katalan-izkuntzarenganako aren zaletasuna oraintxe ikusiko dugu. Uri barruan, kaleetan, eta beste lurraldeetan su gorri, bonbape ta tiro artean gudatiak zebiltzalarik, lagun izan, etsai izan, Pompeu'k itz zorrotzok atera zituan biotzetik: «Naiago zukeala Catalunya katalaneraz erasotzea; ta tz Catalunya'ren alde jokatzea... baiña gazteleraz...» Ontan bukatu zan gerrate madarikatu ura ta azken egunetan Fabra bere senide, familia ta adiskideekin atzerrira igesi egin bear izan zuan. Ez goaz aitatzera zenbat estuasun eta atsekabe jasango zituan.

Etxetik eta erritik aldendu bearra izan dutenak dakite ori. Eta zoritxarreko urte aietan ez giñan izan gutxi...

Samintasuna eztitzeko denbora gutxi barru Catalunia'ko mugetan gelditu al izatea, gertatu zitzaion. Pozkario au aski ez zala, aurki ta Fabra'ren lanen saritzat Tolosa'ko Universidadeak «Doctor Honoris Causa» izendatu zuan. Andik pizka batera, 1.946 *urtean Montspellier, «Jaume I erregeren sorterrian «Jocs Florals» pizgarriak ospatu ziran eta gure Pompeu aukeratu zuten «mantentzaille»...* 1.947*'gnean Prada prantzes-katalan urixkan Katalan-Aste bikaiña eratu zuten poztasun aundia eman ziona.*

Gure gizona, aguratzen asia, 79 *urte betetzera zijoan eta an bildutako gazteai urrezko aolku au eman zien:* «Cal no abandonar mai ni la tasca ni la esperanca»: *Ez da beiñere alde batera utzi bear ez eginbearra ta ez itxaropena.*

Aren gogo-barruko gauzetan erderaren mutil ez izateagatik, azken-naia testamentu edo ordenua kataloneraz egitearren Andorra'ra joan zan. Ez naski, ondasun asko zeuzkalako, katalaneraz idaztitako agiri bat uzteko baizik. Bizitza laburra gelditzen zitzaion ta 1.948 *urtean* 80 *urteko adiñez, Eguberri egunean Prada'n il zan bere emazte seme-alaba ta adiskidez inguraturik, auen artean Pau Casals zegoala.*

Illeta bertako elizan bildutasun aundian ospatu zan Casals'ek eresiak «organo» *eta* «Zelloan» *jo zitualarik.*

Pompeu Fabra'ren gorputza an datza katalan lurrean eortzirik... eta aren arima goian bedi!

* * *

Urteak aurrera dijoaz. XX gizaldiko azken laurdenean sartzera goaz. 1.868-1.968 *Fabra'ren jaiotzaren eungarren urteurrena zala-ta Bartzelona eta Catalunya'ko beste erri askotan oroitzapen-jaiak opa zizkioten.*

Ark katalaneraren alde egin zuan lana ez da alperrik galdu.

«Institut d'Estudis Catalans» *bizi da ark egotzitako indarrez. Eta ez da katalanen aldeko alkarte bakarra ez! Universidadean eta beste Ikastetxe nagusietan Katalan-izkuntzak ba-ditu gorde-leku sendoak gizon argiak bere gain artu ta zaintzen dituztenak.*

Ezin utzi diteke aipatu gabe «OMNIUM CULTURAL» «Palau Dalmases» jauregian jarririk dagoana, Ramon Aramaon i Serra jauna buru dualarik.

Alkarte onek eusten dio geien bat Catalan-Izkuntza ta Kulturari: liburu, irakurgai, sariketa, musika, dantza, ikastola, aldizkari, abar eta abar... Catalunya'ren kultura, izatea ta nortasun osoari.

Gaur egunez katalan izkuntzaren indarra neurtzeko albiste bat bakarra emango dugu. Alegia, kataloneraz sortuak ala erderatik itzuliak urtean 600 *liburu argitaratzen dirala.*

Katalanera ta euskera ez dira berdiñak baiñan arengandik zer ikasi aundia dugula ez du iñork ukatuko. Leia gaitezen lan ortan borondate on eta biotz sutsuaz. «Filolojiazko-jardunak» *sailla Pompeu Fabra'ren omenez egiña dut, eta arek* «Converses Filologiques» *deitutako antzera izendatua.*

Azter ditzagun aren erakutsiak ez ba'dago ere beti gure esku ispillutzat artzea.

ANTONIO M.ª LABAYEN

europa'ren alkartasuna

1.968'go Uztaillaren lenengo egunean, Europa alkartzeko erabakiak artu ziran ta Europa'rentzat egun gogangarria izan zan.

Alkartze onek, Europa'ri emango dion nortasuna ta indarra, bai diru-aldetik, bai politika ta jakintzari buruz, bikaiñak eta onuragarriak izango dira. Gaurko mundu-aldian, zerbait lortu dute, ta ez nolanaikoa!

Beraz, aurrerakada aundia eman dutelarik, beste bi laterri indartsu oiei aurpegia erakutsiko diena, alkartze aipatu au izango da.

Naiz eta izparringiak garbi argitaratu ez, Europa'k eskatzen duanari erantzuteko, aduanabako alkartasuna bearrezkoa da.

Garrantzizko oinkadak eman dirala eziñ uka. Zalantzarik ez dago, ta zeatz dakigu, alkartasun onen muiña ta elburua, Europa politika batez alkartzea dala.

Erroma'n biltzartuak, amets au, aurrean zutelarik alkartu ziran. Beraz, Europa-alkartasunaren kide izateko politikaren batasuna bearrezkoa dala, argi ta garbi nabari da.

Rusia ta Ipar-amerika, bi zakurtzar oiek ikusita, alkartasun au baiño obe-rik ez dago. Europar demokratentzat, egitamurik onena alkartasun auxen dugu.

Ba-dakigu alkartasun au aurrera ateratzeko, egin bear aundiak dituztela. Merezi duana danez, erakunde onen arazotzaz eta arrakastaz, danok kezkatu bear genduke. Zalantzarik gabe, Europa'ko errien-alkartasuna erakunde ontatik datorrelarik, Europa'ren etorkizun zoragarria, urruti gabe ikusten dugu.

Gure Europa-alkartuaren izenean onen argi-dirdiratsua, beste erri guzietara eldu bear luke. Auxen dugu Europa-alkartzeko ziorik nagusiena. Beraz, gu, europatarrok, itxas-ontzian dabillen ibilkaria bezela gera.

OSARTZU

Zorionak «Kamiñazpi»

AGUR TXOLINTSU!

AGUR asterokoan ain ezaguna degun «Kamiñazpi»k liburu berri polit bat eskeiñi digu. Liburu orren izena, gure Oñaitibia'tar Ion'ek asmatua, «TXOLINTXU» da.

Txolintxu, kalera atera da, bai, mirariz bezela! Liburua, txikia da, baiñan sakona ta oso ondo argitaratua. Gazteiz'ko Seminarioan inprentatua. Erriaren Euskera batuan, or ditugu or, argi ta garbi kontatuak. Ondarrutarrak ba-dute gatza...

Ludi guztiko ipui ta gertaera arrigarriak. Baita Euskalerrikoak ere. Geienak laburrak dira —ala bear— ta batzuek, irudi edo marrazki atsegiñez apainduak.

Liburu onen azala —gauza oiek begietatik sartzen bai-dira— dena margotan dijoa. Jostaillu bat dirudi!

Gure ikastoletan dabiltzan nexka-mutillak ba-dute beraz ogi berri gozoa, jateko gertua! Ez al dute baztarrera botako!

Zorion beroak berriz ere gure «KAMINAZPI»ri, ta aurrera beti!

Ekin eta Jarrai! Urrengoan, Jainkoak lagun, geiago ta obeki. Ain da txarra egunez lo egitea! Alde guztietan —ta batez ere gaurko Euskalerrian— egintzak balio dute, egintzak!

Ikusi nai duanak, ikusi dezala! Egiten dan guztia —ona baldin ba'da obe— or gelditzen da! Beste guztia, utsa da!

MATXIN

AGUR

III URTEA
42 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - BAGILLA - 10

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ARDURATU

Alkarteko egin-bearrak bertan bera izteko, barru-barrutiko jokera bat daukagu guztiok. Eta jokera oneri aurka egitea ez da erreza.

Nondik sortu ete da askok artzen dauan bide baragarri au?

Batez be, domu-zalekeriak, kapitalismoak, sortu dauan gizonaren akatza da: norberarentzako dirua dakarrena egin; besteentzako ongarri dana, itzi. Norberekeri lotsagarria, benetan.

Norberekeri onek ba dauka, baita, beste iturri loi bat be. Gaurko laterri aundiak dana eginda emoten dauskue eta eurak nai daben erara eginda. Eta orregaitik gizona ardura bakoa egin da eta barruragiño usteltasuna sartu jako.

* * *

Gizon guztiak dagoz ardurabakokeri oneri aurka egin bearreko, eta esan bearrik ez dago, errazoi geiagoz gu.

Arduratu geure buruak osotzeko: adimenez, naimanez, biotzez, gorputzez. ...Datorkun dana artu barik, geuretzako ona dana aukeratuz.

Geure barruan benetako erri-zaletasun bat sortu ta azi bear dogu. Ori kanpotik be apur bat etorriko da, baiña orren aurkako jokabideak be bai. Landara bikain ori gure biotzean arduraz zaindu bearrekoa da.

* * *

Baiña arduratze au, inguruko arazoetan sartze au, lanbide bat izango jaku, arrisku bidea be bai, eta neke askoren sorburu.

Orregaitik, euren ustez benetan maite gaituenak onelako onuak emongo dauskuez: «Ez zaite sartu, ez zaite aurretik ibilli...» Ez dira oneek burubide zuzenak. Danean sartzeko indartu bear gaitue, geure nagikeria kentzeko ta geure bildurra azpiratzeko lagundu bear dauskue.

* * *

Eta iñork itauntzen ba'daust: Zetara sartu bear gara? Erantzuna erreza da. Ainbeste bear-izan dira gure inguruan!

Sartu jakintzara: abedetze-ekiñaldiak, idazti-zabaltzeak, irratiak, abestiak, dantzak, diskoak, aldizkariak indartzean, errietako jaiak eratzean, ikastolak...

Sartu erri-arazoetara: bideak, urak, argia, kaleak, eskolak... Au ez da erreza, baiña al doguna egin bear dogu.


Sartu erlejiño-geietara: batzarrak arduratuak izan daitezan, erlejiñoa lo-bide izan ez daiten, mundua barriztatzean oiñarri zuzenak ezarteko lan egin dagian, Eleizea bere akatzetatik garbitu daiten, «siñistea, arduratzea» izan daiten. Indartzera, ta ez apurtzera.

Sartu gizonak gure Errian batzeko bideetara: alkargoak, sendi-alkarteak, gurazo-bazkunak, eta, batez be, al dan neurrian, lan-alkargoak...

Eta beste zenbat arazo esan-eziñak eta egin-eziñak...!

Begiratu begio bakotxak bere barruari eta itandu: Zetan sartu gara? Zetan arduratu gara?

AGUR



DURANGO'tik Urkiola'ra, jainkotxikien arriak.
Oporraldian ezagutu zure erria!

MARIÑELAK

Ondarru'ko «Kresala» *taldekoak ezin zezateken antzerki oberik antolatu al izan* «MARIÑELAK» *deitzen dan musikadun teatro-lan eder au baiño. Benetan egokia, Erderaz «zarzuela» esan io dan orietakoa; frantzez-aleman-inglesak «opereta» operatxoa izendatzen dutena: alkarizketa ta musika, guzia nasturik.*

Itz eta ipuiaren egillea Agustin Zubikaray degu; eta musika ta kanta-sail aparteren sortzaillea JOSE MARIA ALTUNA organista. Aitatutako bi ertilari bikain auei goresmen eta zorionik bizienak zor dizkiegu ain antzerki-lan bikain eta baliotsua sortu digutelako.

Au naikoa ez dala gaia tajutu ta asmatu ondoren, Zubikaray ta Altuna'k beren doai goitarrari esker eta lan asko ta asko egiñez KRESALA *taldekoeri erakutsi ta ikasi arazi diote, bai kantuz, mintzoz, keñuz eta jokuz* «MARIÑELAK» *bizi-bizirik ager zitezen arrai preskoa bezin dizdirakor eta pizgarri.*

Orretarako «KRESALA» taldekoak, kostarrak izaki, gatza eta piperra ba-dizute gu legorrekoei antzezkizun atsegin eskeintzeko. Ao zabalik arrituta gelditurik gerala aitortu bear dugu. Txalo-joka eten gabe!

Irudi ta joku-lagun guziok ain ondo ikusi ta jantziak daude: agure-atso, andra-gizonak, neskatil eta mutil gazteak. Orok bat erri-taldea osatzen Grezia'ko koruaren antzera. Nola ez bada, ain ikusgarri jatorraz ez bete publiko-jendearen gogo eta biotza?...

Baiñan antzezlari guzien artean bikote bat nabarmentzen da gaingaiñetik: Amaya Aulestia andrea ta Xabier Solaberrieta jauna: MALEN eta BATIS paperean. Teatrolari-jokuz zein baiño zein gaillenak baldin ba'dira kantuz eta abeslari legez, ez oso onak bakarrik, artista oberen artean jarri ditezke: Amaya Aulestia *andre xarmagarriak edozein* «prima-dona»k *bezin ederto kantzatzen bait du; eta Xabier Solaberrieta abots zolidun tenorrak ez dio «divo» askori ezer zor.*

Eta biok ondo eskolatuak, errez eta sentimentuz abestuaz entzule-jendea txoratu zuten. Batik bat «Ni zuretzat eta Zu niretzat, biok alkarrentzat» *duo unkigarri ura txalo-otsaren artean bi aldiz kantatu bear izan zuten.*

Abeslari bezela «bajo-kantante» *papera bete zuana ez da nolanaikoa. Antzezlarien artean ARKOTXA ANDONI «Atxukale» ospetsua aipatu bear dugu. MARTIN arrantzale zarraren arloan ezin ta obeki mamitu zuan. ARKOTXA'ri Euskal-Teatroak zor aundia dio. Antzezlari ezik, teatroegille, idazle bait dugu antzerki asko idatzi dituana.*

KRESALA taldeko beste joko-lagun guziengatik banaka-banaka zerbait esatea luze joko luke. Alaz eta guziaz ezin utzi aitatu gabe: MOXOLO (Pello Aremayo) LINE (Nekane Landaribar) KATALIN (Imanole Arrizabalaga) DOATE (Begoña Badiola) abar eta abar... Barka bezaidate aaztu ditudanak... Danongatik aipamen goresmengarri bat egingo dut. KRESALA talde osoak merezi bait du. Ez bait zaiei olakoei bear aiñako goresmenik egiten ez garrantzirik ematen. Erritako antzezlari taldeak Euskal-Kultura ta eziketaren alde egiten duten lana aintzakotzat artzekoa da.

Artista guziek: pintore, irudigille ta olerkariak goretsi ta lagunduak izatea merezi dute, baiñan musiko ta teatrolariak oraindik areago. Ontan leiatu danak daki zer nolako nekea artu bear dan jendea bildu, ikasi arazo ta gaiñerako antolamen guziak egiten, Eguneroko lanak etxean, fabrikan edo beste nunbait eginda gero zoaz egunero saiaketak egitera, bost bat sei astetan bakoitzaren paperak ondo ikasi arte. Erriz-erri ibilli bearrak ere ba-du bere nekea ez dana beti gogozkoa.

Jendeari poza ematearren, erri-maitasun eta euskalizaleтasunez, doarik egiten dana baizik.

Au da Ondarru'ko KRESALA *taldekoak egiten ari dirana Euskal-Erria'ren zear. Dagoaneko Eibar, Elgoibar, Tolosa ta beste erritan txalotu diztuzte; eta entzun dudanez, aurtengo udaran Donosti'ko euskal jaietan agertzekotan omen ditugu. Askotan dirua galdurik, ez baldin ba'da musu-truk, baiñan beti biotz-irabazle.*

Zorionak beraz ondarrutar bizkorrai! Topa! Eta Jose Mari Altuna musikalari aintza eta goresmena goi-arnasez gure Eresia lantzen jarrai dezan.

Azkenik Agustin ZUBIKARAY «KRESALA» taldeko zuzendari dan nere adiskide zarrari besarkada estu bat. Losintxarik gabe esan diteke berau degula gaur Euskal-Teatroan dabillen gizonik omengarriena.

Gora zu eta Ondarru'ko KRESALA taldea!

BOGA! BOGA! MARIÑELAK!

ANTONIO M.ª LABAYEN

EUSKERA BIZIAREN ALDE

Ez dago gaur epelkerietan ibilteko astirik. Euskera arloan lan egiteko edo, euskeraren alde diardugunon artean iritzi ta elburu oso ezbardiñak sortu dira. Batzuk, asmorik onenagaz bear ba'da, aldanik ariñen «euskera batu» bat sortu ta sartu-erazo bear dala diñoe, ta orretan dabiltza. Iru edo lau zatitan banandu ba'dira be, geienak beintzat, gaixorik dagoan izkuntzea il-zori larrienean ipinten dabe, euskalkiak ito naian. Ez da naikoa, komeni danean, «euskalkiak errespetatzen ditugu» esatez.

Euskaltzaindiari aurkeztu eutsen arazoa, asieran, «Literatur euskerearen batasuna» izan zan, eta literatur mailla orretarako batasun baten aldeko geienok giñan, nai ta au askok siñestu ez.

Baiña «literatur euskerea» zer dan aukeratzean eta lortzeko bideetan, banandu gaitue, egunduko bitasunik kaltegarriena sorturik.

Bizirik iraun dauan euskerearen ordez, «batua» izen politdun asmakizun ori sartu nai da, baiña, ez literatur maillan bakarrik, baita aldizkari, ikastola, erri-agiri, eleiz-orri ta danean, eta zelako amorruagaz gaiñera! Eta orrela jokatzea, Jaunak, euskerea erailtzea da; gaixorik dagonari «oxijenoa» kentzea.

Danok, idazleok, bigarren asmo orrein morroi ba'giñakez, erri xeak, euskereagaz baliatzen dan erriak, berak oguzten dakian izkuntzan ezer irakurtzeko erarik ez leuke izango; len bezela orain be analfabeta iraungo leuke; astiaren astiz eta apurka-apurka ikasi daben izkuntza bizi ori urrituko litzake, ta kito.

Ta, euskereakin berakin zer ikusirik ez eta tresnatzat artu daben laboratorio orretan asmatutako «batu» orreitatik edozein, ernetzeko gai ete? Ez dogu uste ta, bada ez badan, lengoari, biziari eutsi bear dautsagu. Aldizkari baten irakurri dogunez, gaur alfabetatzerik sakonena dagian Kili-kili taldea, bide onetik doa, ta itxaropentsua da guretzat, benebenetan, jokabide ori: Lenengo oinkadea «norberaren izkuntzan irakurtzen eta idazten irakastea da», ta ez besterik. Urrunago jo nai duanarentzat, indartuta gero, geroago izango da aukerea ta zeregiña.

Euskaltzaindiaren izenean erderaz idazten dauan jaun batek, oraintzu: «gu ez gagoz euskalkien aurka» idatzi dau Donosti'ko izparringi baten... baiña ez ALDE, be, esango neuke nik. Gaurko giroan ZAINTZEA litzake lenengo eginbearra, baiña ikusten dogunez, alegin guztiak «batu» orreik sorterazotzeko egiten dira.

Beraz, Euskaltzaindiaren lana bide ortatik ba'doa edo ba'daroe, ezinbestezkoa dogu beste alkarte bat sortzea. Ez bestearen aurka eztabaidan jartzeko, ez. Euskera biziaren alde jarduteko baiño; beste orren utsunea batetzeko. Zelan? Al dan neurrian zabalduaz, indartu ta garbitzeko. Bost-sei goi-maillako jakintsuren inguruan bilduko gara, lanerako gertu gagozan euskaltzale geienok. Bideak urratzen asiak gara ta zerbait lortzen dogunean, baimenak-eta lortzen doguzanean, erriaren aurrean agertuko doguz gure elburuak: Erri ori, euskal erri ori da euskeraren jaun eta jabe, berak, eta ez beste iñork, dau auzi onetan azken itza. Bitartean gogoratu dagigun abesti polit au:

Sasi-jakintsu asko
dabiltz galdu nairik.
Asmo txar aiek guztiak
dirade alperrik!
Ta, gora Aitor'en izkuntza zarra!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

SASKI NASKI

«Agur» gure aldizkariaren 38'gn zenbakian, naspiltxoa gertatu da, itxuraz, nere idazlanean eta au argitu nai nuke, azaldu dan bezela ezpaita ondo ulertzen esanaia.

Aitatutako idazkian, bigarren zatian onela dio:

«Aurrekoa idatzi ta orra nere aurrean, orain arteko poza pixka bat oztu dun izparra. Unidad periodicoan ERDAL IDAZLE baten azalpen batzuek».

«ERDAL IDAZLE». Ementxe dago nastea; ezpaizan ERDEL IDAZLEA, EUSKAL edo obeto esanda EUSKERANTO IDAZLEA baizik nik aitatzen nuna. Argitasun onekin nik uste ondo ulertuko dezutela idazlanaren esanaia.

* * *

Berriz ere nere idazlan bat aitatu bearrean naiz ba. 34'gn zenbakian Donosti'n, ikastola batean gertatua adierazi nun.

Ba-nekin, onekin, aserreak izango zirala, eta gertaera ontan zer ikusia dutenak ez dutela, iñoiz ere, egia danik aitortuko.

Ez dira asarrean bakarrik gelditu ordea. Nik idatzitakoa gezurra dala esan omen dute. Ikastola onen izenik ez nun eman, baña ez da bearrik izan norbaitzuk ulertzeko.

Ez nun gertaera onen zeaztasun geiegi eman baña oso bertatik jarraitu nun an gertatutakoa eta beste «zertxobait» ere esan dezaket. Esandakoa naikoa dala derizkiot maltzurkeria salatzea besterik ez bai zan nere asmoa.

Besterik ez ba ontaz (oraingoz beintzat) eta gezurtia naizela diotenak, esan dezatela nere idazlan ortan, zer dan gezurrezkoa.

* * *

«Zeruko Argia» ale bat iritxi da nere eskuetara. Eta bertan, idazle batek «Ikas» iztegia aitatzen du, ain xuxen, ementxe det aurrean, eta nik ere, gai ontaz, zerbait esan dezakedala derizkiot.

Nola esan diteke egilleak euskera ez dakitela! Nik ez dakit Montiano eta Urkijo jaunak euskaldunak diran, ez ditut ezagutzen eta. Baña Xabier Peña jaunak oso ondo dakila bai eta Etxenagusia jaunak ere bai noski. Iztegia pixka bat irakurri besterik ez dago, bera egin duten egilleak euskera ez dakitela esatea txorakeri ederra (txorakeria ala gaiztakeria?) dala ikusteko.

«Egilleak eta haien iztegia goratu eta txalotu dutenak eskola zaharrekoak bide ditugu» dio beste zati batean. Zer esan nai ote du gure «adiskideak» «eskola zaharra» aitatzen dunean? EUSKERA erabiltzen degunok al gera «Eskola zaharrekoak»? Orrela ba'da, bai orixe! Baña gauzak argi utzi ditzagun. Gu EUSKERA ESKOLAKOAK gera; gure aurrekoak irakatsi ziguten EUSKERA ESKOLA' KOAK, besterik ez.

«Zazpiak bat»ka aritzen giñanetakoak edo aien ondorengoak gaituzu bai! Eta aiek **irakatsi ezpaligute, nundik ote genekiken ZAZPIAK** BAT **gerala?**

«Iparraldeko itz berezi bat denean, ipartarrei dagokie erabaki nola idatzi behar dugun**», dio.**

Nola idatzi bear duten, **ez al dago obeto? Guk,** euskerak **ez dun izkirik ez dezakegu iñoiz onartu. Iparraldean, (Egoaldean ere bai zoritxarrez), erdel kutsu aundia sartu zaigu urteak zear, eta** norbaitzuk **beste zerbait esaten ba dute ere, nere iritziz, H ori pantzeratik sartu zaigun izkia degu, Iparraldetik guregana sartu bearrean, Euskal Erritik kanpora botatzea izango litzake beraz onena. Orretzaz gañera, gaur,** norbaitzun **«ikurra» besterik ez degu...**

Nolanai, «Agur»ek aspaldi adierazi zun, Iparralde'ko euskaldunak atea zabalik dutela «beren erara» idatzitakoak bialtzeko. Ez bai degu guk «Biak Bat» nai, «Zazpiak Bat» baizik, nai dun guziak dakin bezela. Iparraldeko'ak aitzeki artuta gure aurrekoak **egindako lan guzia baztertu nai dutenakin KONTU ordea!**

Iztegi au beraz, gipuzkoar eta bizkaitarrontzat, zoragarria degu: eta askotan esan degun bezela, oraingo lana, bakoitzak gure izkelgia gora, oso gora jasotzea da; ori gertatzen danean, batasuna egiteko garaia izan diteke.

* * *

«Euskera» aldizkaritik artu ta «Agur» en «Euskaltzain»en zerrenda ikusi det —len ere ikusia nun baña— eta batbatea, len oartu ez nintzana etorri zait begietara. «Euskaltzaindikoen» euskal abizenak **erderazko idazkeran idatziak. Nola diteke ori? —«Aguirreche» - «Arcocha»— «Basterrechea» e. a. Au ere «euskera batua» al da? Edo Arenaza jaunak zion bezela «erdera batua»? Euskaltzaindikoen abizenak orrela idazten ba'dituzte, bere «arauetan» edo «recomendasioetan» laster, H'ak ez ezik C eta CH eta erdel idazkera guzia onartzera beartuko gaituzte. Gero ta obeto...**

AMALE'K

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendati ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

EUSKALDUNAK

Ta «ORIXE»ren beste olerkiak.

Barriz argitaratu barriak ditugu. Ai! euskalzale barriak ba'lekie nolako nekeak izan genduzan lenengo argitalpen a, argitaratuta ikusi ta ale bat eskuratzeko. Euskerea zearo galdua edo amilbera botea egoala uste gendun, eta Olerki Aundi au zala euskarri bakarra, garai negargarri aretan.

Baiña, egiak eta zintzotasunak, oztopo guztiak gaintzen dakiez eta azkenean garaille izatera etorri. Ara, or, edozeiñen eskuetara «Orixe» aundiak eskeindu euskun lan zoragarria.

Bere itz-aurrean (Ikasientzako, iñoan) dakarren zatitxo bat emen:

«Nere lan oni kera berri bat ematen saiatu naiz; ez Homer'ena bezain lasaia, ez Horati'rena bezain tinkoa, bien tartekoa baino. Gauza eder aunitz esan, labur esan, arin eta laister eman, ustez beintzat. Erri-kera asmatu dudala nago...»

Bai, erri-kera ta erri euskera ederra darabil ososoan:

— 359 —

«Tximisten Bartangorri», ala duk oitura;
legea nola daiten ez orain ardura.
Lengoak balio dik gaur ginun jokura.
Urrengoan, or ikus; eizute zer-gura».

Berak egin eban bai, gizaldi makal onetakoak urreratu ezin aiñakoa. Ta, «eizute zer-gura» ori, ederto ezarri lei aren azpitik beean galbitzan «gaurko» guzti-guztiori.

UBITZA

ELEIZEA TA ELEIZ-GIZONAK II

Gai onetaz AGUR'en 33'gn zenbakian idatzi nebanean, «gaurkoz naiko» esanaz amaitu neban nere idazkuntxoa. Ba-neban uste, baten batek zeozer erantzungo ebala, ta alan izan da izan be. Egun gitxitxu dirala, gozo ta maitagarri agertu zan abots batek, naiz ta nor zan esan ez, ea gai orretzaz idazten jarraituko ete-neban itaundu eustan. Bayetz erantzun bear, «gaurkoz naiko»k orixe-edo esan nai dau-ta.

Zein bidez, baiña, jarraituko ete-dot? Eleiziaren aldekoz ala Eleiz-gizonen aldekoz? Alde bietatik biribildu bearko dot nere lantxo au, ostantzean oin batekin geldituko litzake ta errenka ibilli bearko. Lenengoz Eleiza aldetik.

ELEIZEA EUSKERAREN ALDE.—Len aipatu dodan AGUR'en, Kalagurri'ko ta orduan gure Gotzain zan Lepe jaunak irakatsi ebana ekarri neban. Egi-egia da, an azaldu nebanez, Lepe jauna ez zala Eleizea, baiña euskotarren Gotzain eta gogo-artzain zan ezkero, euskotarrai Jaungoikoaren itza ta Eleiza beraxen abotsa emotera bertuta egoan. Eta Lepe jaunaren neurriko gizon batek orrela egin ebala ezin ukatu, batez be irakasmen ori Synodo Aprobante emon ebalako

Gaur, baiña, iturri garbi ta argiagora joko dot. Josukisto Jaunaren Igokunde-ondoren Jerusalen'en batzartu ziran amaika Ikasleak eta Josu'ren Ama ta beste emakumeak eta euren senideak Eleizea zirala ezin ukatu. Axe zan Josukistoren Eleiza osoa, naiz Jaungoikoarekiko naiz gizonarekiko Eleizea, gaur gurea dan Eleizea.

Eta Eleiza orrek, «erri bakotxari bere izkeraz» itz egiten ikasi eban Jaunagandik. Urrun nigandik euskeraz be egin ebela esatea; ezin dot esan nik, an euskotar batzuk zirala, baiña euskotarrik an ez egola esango daunak be ezin dau bere ukatze ori egiztu (aldi artan euskeraz egiten zala ba-dakigu beintzat). Entzun Luka deunak zer diñoskun Bidalien egiñetan: «Eta Jerosolin'en... ortzi-bei diran *erri gustitariko* gizon jaungoikotijaik bixi ziran». (Arriandiaga'ren euskeraltzea). «...ez al-dira, ba, galilaitarrak onek mintzo diran gustijoik?... Nolan, ba, geure-tariko norberak jayo garan eliaz mintzo entzuten dautsegu? (Bild. Eg. 2-3, 8).

Ba-dakit Josukisto'ren ikasleen mintzoera ori batzuk onela ta beste batzuk ala ulertu ta azaltzen dabela; baiña naiz mintzoerea zala, naiz otoitzerea izan, naiz zana zala, *Erri bakotxari* bere eraz emon yakon. Eleizeak, Josukisto beragandik artu eban gezna edo mezu au: «Zoazte mundu orotara eta predika iezozue Evangelioa creatura guziari». (Mat. 16. 15.—Leizarraga'ren euskeraltzea). Nola mintza baiña? Entzun Paul deunari. Paul deuna be lenengo Eleizakoa zan eta bere idazkietan Goteunak irakatsita idazten eban. Beraz, berak idatzi ebana, Eleizeak idazten dau: Onela diñosku Korintarrai egindako lenengo idazkian: «Ba-dira lur biran izkera asko: ta itz adigarririk gabe bat ere ez. Bañan itz-indarra ez ba'dazagut, mintzo zaidanarentzat erdaldun izango naiz, ta berebat ura neretzat». (Olabide'ren euskeraltzea.—I Kor. 14. 10, 11).

Eta Paul deuna ibilli zan bidetaz zebillan Eleizearen BURU zan Kepa deuna be. Ze izkera erabilli ete-eban Kepa'k Korneli'ren etxean? Zer dala-ta arrituta lotu ziran Kepa'ren lagun judarrak, «Goteuna Korneli'ren etxean entzule-gaiñera jeitzi zala ta *izkuntza arrotzetan itz* egiten ta Jaungoikoa goresten zentzuietela» (B. E. 10. 45, 46), ikusi ebenean? Niretzat argia bera baiño argiago da Eleizeak jatorrizko izkerak zaintzen dauzala ta, beraz, euskerearen alde dagola ta beti egon dala. Paul eta Kepa'k irakatsi euskuena beste Doipuru edo Aitasantu askok be irakatsi dauskue, Iru bakarrik izentatuko dodaz: V Paul, XV Benedita ta XXIII Jon. Lenengoak bere asarrearen zigorpean agintzen eutsen belgundariari zeruratu nai zituen erriai onein izkeraz egiteko. (sub indignationis nostrae poena); bigarrenak belgundarien biarkun gorengoen artean, eurak zeruratzen ebiltzan errien izkerea ikastea jartzen eban. (ikus bere Maximum Illud). Eta XXIII Jon'ek bere «Mater et Magistra» ta «Pacem in Terris»etan errien jatorrizko izkeratzaz idatzi ebana gaurko egunotan ondo jakiña da.

Gatortzan orain Eleizeak bere Batzar Nagosi ta Orokarretan irakatsi dauskuna ikusi ta ikastera. Batzar bi bakarrik emen izentatu ta aztertuko ditut. Trento ta Batikano II.

Tento'koak, auxe diño bere 24'gn batzar-aldiko «De Reformatione»ren VII atzalburuan: «Gotzain guztiai agintzen diegu Ikurtonak edo sakramentuak erriari azaltzen dautsezanean, au beraxek egiten dabenean *erriak ulertzeko* eraz egiteko; ta txaunburu edo parroko bakotxari, bear danean ori Lingua Vernacula (jayotz-izkeraz) egiteko. Eta jaupa edo meza-tartean egiten dituen itzaldi ta oarpenetan, erriaren jayotz-izkerea (lingua vernacula) erabilteko. Ez diño «erriak uletzen dauan izkeran, ez bada erriaren *jatorrizko* izkeran. Orixe da «vernacula»k esan nai dauna-ta.

Batikano'ko II Batzarrak be berorixe irakatsi dau argi be argi. Irakurri «Sacrosanctum Concilium» deretxon Agiria (36, 63, 76, 78). Ta «Presbiterorum Ordinis» izena daun Agirian jaupari edo apaizai diñotse: Erri batera doazanean ikasteko ondo ez bakarrik izkerea, baita erriaren izkera bedegarra be. Eta «Ad Gentes» izena daun Agirian, bere 26'gn zenbakian berorixe diñotse bidali edo misiolariai. Ez dedilla iñok esan ba, Eleizea euskeraren aurka dagola

Baiña eleiz-gizonak? Orretzaz urrengoan. Gaurkoz naiko.

Oarra: Nire lengo idazkunean au irarri eben: «Batzuk eta besteak euken egi osoa».

Nik idatzi nebana beste au zan: «EZ batzuk ta EZ besteak euken egi *osoa*».

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

POZAK ETA KEZKAK

LA GRAN OCASION.—Izenburu orregaz, Mungi'ko parrokian agertzen dan aldizkaritik, «Concordia»tik, jaso ta euskeratu dogu urrengo au: «Gaztelera Akademia'k, entzun dodanez, «h» guztiak kentzeko asmoa ei-dau; iru arrazoi oneik bideko: «Ez ei-dira bearrezkoak; Idazkera zuzenarentzat kaltegarri eta, Laterri guztietan kentzera doazelako»... Kontxo, kontso. Aukera obarik! Ederto etorriko jakoez euskaltzain batzueri, orrein bear-izan gorrian ei-dagoz-eta.

* * *

OSATU-EBAKUNTZAK. — Euskerantoa lantzen dabiltzan sasi-ikasi batzuk, ez dabe mugarik ezagutzen. Itz-aurrean «t»a daroen itzeri izki ori kentzen asiak dira. «Txistua» be moztu dabe, ta «fimosis» osatebakuntza onen miñak biguntzeko, «h» nasteko emplastoa ipiñi dautsoe. «Xori-xipi xistularien xapelketa xalogarria xastatu diat» esan euskun batek, eraiñegun, eta aterkiñak zabaldu bear izan genduzan ingurukook.

* * *

JAIO-BARRIA.—«Oñate» ikastolako irakasle batek, zortzi-bederatzi urte inguruko bere ikasleak, «h»ak sartzera beartzen ditu. Mutiko batek, zentzunez, esan eutson: «Euskeran ez dago «h»rik».—Irakaslearen erantzuna, pontificalki: «Bai, badagoz».—Mutikoak barriz, jakintsu: «Itz oneik ez dakarre «h»rik Azkue'ren iztegian».—Besteak, filolojiz beterik: «Ori antxiñakoa da».—An zirau mutikoak baiña, argiak izan, eta alkarri laguntzen zintzoak. An jagi zan beste bat, eta auxe bota ta irakasleari: «Ba-dot nik euskera asko dakien osabea; AGUR'en idazten dau ta ez dau iñoz atxerik sartzen. Ara barriz «gaurko» irakasle, bigarren jazarlariari erantzun bearrean, eta ezbestean: «Ori be antxiñakoa da»!

* * *

LEIZA-AZTERKETAK ZERTARAKO.—Orra nundik Euskerea bera, gaur goizeko bizaro moztuteko unean orretaiko batek asmatu dauskun zerbait. «Gaurko» geien orreik baiña, ez dakie zer dan labaiñea, eta bizar-mozten barik, estu-ulli «moderno»ren baten, zilbor zulora begira asmatitako burutapenen bat izan bear «horreintzat», ta orrelaxe nai be erabilli; mordoilloz zikinduta.

PIPER-ZIRI

GAZTE

IDAZLE BARRIAK

KILI-KILI

Kili-Kili euskerazko ingurrazti bat da. Kili-Kili'tik gauza asko ikasten dira: abestiak, euskeraz idazten, euskeraz irakurten eta gure antxiñako aititeen gauzak.

Nik neska-mutil asko ezagutzen dodaz au egiten dabenak, Mungi'tik, Katika'tik, Gamiz'tik, Pruniz' tik, Fika'tik eta Meñaka'tik. Ni bere Kili-Kilitarra naz.

Gero sariak egoten dira. Ni oso poztute nago Kili-Kili'gaz. Kili-Kili gure eskuetara etorri da ikastola baten moduan.

Ibil-aldiak egoten dira. Egun batekoak, bikoak ta irukoak. Igez, ni egun batekora joan nintzan, eta neska-mutil asko ezagutu nenduzan. Ondo ibilli nintzan, Igeldo'ra joan giñan eta Zarauz'en bazkaldu genduan. Oingo udan bere neska-mutil asko ezagutu gura dodaz, igezkoak eta barriak.

URKULLU'TAR IÑIGO (9 urte)

LAGUN BIOTZEKO

Nik Mungi'ko jardiñek, batzuk, ondo ikusten dodaz, eta beste batzuk ez ain ondo. Abade etxeko jardiñe naiko ondo dago alderdi bat, beste alderdia txarto. Plazako jardiñe, ainbat obeto.

Zugatzak asko ez dagoz, baiña guk umeok, apurtu egiten doguz olgetako. Erri-zaiñak an ibilten dira jardiñetara sartu ez gaitezen.

Eta beste ezer barik ba-noa. Agur.

IDARRAGA'TAR JABIER (13 urte)

EGUNEKO IKASTAROA

Lagun biotzekoak: Nik gaur, ikastolan zer egiten doten esan gura dautzuet.

Nik lenengoz, goizean ikastolan sartzen nazenean fitxak egiten dodaz ordu bian. Eta gero errekreora urteten dogu. Ondo jolastuten dogu ordu erdian. Eta gero, puesta en común egoten gara ordu betean. Ondoren etxera joaten gara.

Eguerdia sartuten garanean, ordu bat irakurten egiten dogu. Eta beste ordu baten fitxak ondo ipiñi, ingles ikaskizuna emon eta orretariko gauzak. Eta gero ikastolatik urten egiten dogu eta seiretan euskerazkora joaten naz.

Eta gaurkoz emen izten zailuet. Agur.

IDARRAGA'TAR M.ª Kontxi (10 urte)

UDEA

Udea polita da ta gu udean pozik gagoz. Udan lorak urteten dabe ta gu poztuten gara txorien abestiekaz. Udean txoriak margo politak daukez. Udean zabaldietatik ibilten gara, baiña neguan ez, bustita dago ta.

Udean jolasten geiago egiten dogu eta ikastolara ez goaz. D. Pauliñ'ek be udean jolasteko denpora geiago izten dausku, orregaitik udea datorrenean, gu pozago gagoz.

ELORDUI'TAR AINTZANE (10 urte)


KRISTAU - DEMOKRAZIA TA ERRIAK

Kristau-demokratak munduko politika gora-beeretan zerbait ba-dirala egunero erakusten ari zaizkigu. Italia'ko azken auteskundeetan, berriz ere, ango Kristau-Demokraziaren alderdia beste guzien gaiñetik atera da.

Ori 27 urte luzeetan Erroma'ko Gobiernoan nagusi egon dalarik. Eta jakiña izan oi da gizon-talde dan alderdi bat luzaroan gobierno-lanean jarduna danean txautzen dala eta indarrak gutxitzen.

Alaz eta guziaz, gaur, orain 27 urte bezela Kristau-Demokraziaren alkartasuna da Italia'ko politikaren ardatza.

Errepublikato lendakari Leone jauna dute; eta kristau-demokratak ditugu orobat: Andreotti, Fanfani, Rumor, Scelba, Moro ta agintari gallenenak. Don Sturtzo ospetsuak sortu ta sendotu zuan politika-eskolak zitu ugaririk emana da. Lenengo ikasle Gasperri' tik asi-ta geroztik diarduten ondorengoak arrigarrizko politika-lan onurakorra bete dute Italia'ren on eta mundu guziko pakearen alde. Kristau-demokrazia ez baitda Italia'n bakarrik bizi. Bai Austria, Alemania, Beljika, Holanda; eta Ameriketa'ko Txile eta Venezuela'n batik bat gallen eta irmo agertzen zaigu errialde orietako politikan arlo garran tzitsu bat bururatzen.



Eta esan dezagun euskaldunok alderdi oriekin aspaldidanik ar-eman eta bat egiñik askotan arkitu izan gerala, ta euskalduna aien batzarretara al zuanean agertzen zan eta beti ongi etorri beroena egiten zioten. Geroztik bide ortan jarraitu dute. Eta azkenik-gure ordezkari il berri degun Joseba Rezola (g. b) izaten zan. Naiz osasunez patal egonagatik gure adiskide argi ta zintzoak ez zuan utsegingo Kristau-Demokraziaren Batzarretara joatez. Amaika ibillaldi neketsu egiñik zan Europa ta Amerika zear. Txile'ko Frei jauna eta Venezuela'ko Caldera lendakaria ezagunak zituan. Italia'ko krista-demokrata gazteak arras maite zuten gure Joseba eta «*Panorama de la Democracia Cristiana*» aldizkariaren berri emaille zan eta paper au gure artean zabaltzen leiatu zan azken arteraño.

Benetan Luigi Sturzo (1872-1972) izan zanaren jarraitzaille. Gizon jakintsu au eleizgizon prestuaz gañera politikari zuzen eta trebea izan zala edozeñek daki. Gizarte arazoetan gidari zuur eta sakona Kristau-Demokraziaren sortzailletzat jo bear dugu Italia'k, Europa'k eta mundu guziak asko zor dio errien etorkizunari buruz eman zizkigun zuzen-bide eta ideiarengatik. Arri esker kristau demokratak aurrean dabiltza. Beraz gora dezagun Don Sturzo marxisten jainko txiki guzien gañetik. Eta euskaldun gazteak aren urratzetatik joan ditezela. Au da erakutsi bear dieguna. Kristau-demokrata izateak marxista-leninista izateak baño geiago balio bait du. Bai gizonarentzat eta bai errialdeentzat.

Marxistek Txekoeslovakian, Kroazian eta beste toki askotan zer egiten ari diran ondotxo dakigu: gizon eta erriak zapaldu. Soltzenitzin txokoratu... abar eta abar. Eta itzegin bear danean isildu. Mariano Rumor Italia'ko gobierno buruak gutxienez emengo auzi denboran bere asarrea agertu zuan. Eta orain bertan Italia'n Kristau-Demokrazia agintzen dagoala barrengo autonomi ta norbere jabetasun zenbait antziñako errialdeai eman diote. Aosta ta Tirole'eko lurraldeai ere eskubide asko bereganatu dizkiote.

Guzia ez da noski zeru, Kristau-demokrazia nagusi dagoan errialdetan. Akats eta bidegabekeria asko gelditzen dira ta zuzendu bearra dago mundua obetu dedin. Au ordea askatsun eta errespetoan lortzen da; ta ez bestela.

Kristau-Demokrazia ta abertzaletasunaren kidegoa elkarren ondoan ipiñi nai izan ditut. Joseba adiskide maitearen kezka nagusia auxe izan zan. Eta lagun on, buruzagi kementsu ta zuzen, kristau eta euskeltzale sutsuaren oroiz eta omenez goratsarre itz baldar auek biotzez eskeintzen dizkiot.

ASPALDIKO

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

CASCO VIEJO
TENDERIA

Boutique
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak
Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

JAKINTZA TA ERTIA

DURANGO'KO UDALETXEA'REN JAKINTZARAKO ERRI-BILTOKIAK

Ezkurdi ibiltokian diran Jakintzarako Erri-biltokiak eratzearen zergaiti nagusia erakusketak antolatzeko izan zan, eta zear-bidez, Jakintza-Etxe berezi bat sortzen ez zan bitartean, jakintza sailleko beste ekintzak be nun agertu al izatea: itzaldiak, eres-sayoak, ikastaro laburrak eta Jakintza-Etxe batek bete daikezan beste arloetako jardunak.

Gaur arte baiña, zergati nagusi ori bakarrik bete al-izan da, erakusketena atan be, ta zear-bidekoak alboratuta geratu dira, ez dogu ba, izan be, esku artean, orretarako aukerarik.

1970'*gngo Garillaren* 16'*gnean Biltoki oneik zabaldu ziran eta gaurdaiño* 23 *erakusketa antolatu dira, ia eten barik, emen azpian jartzen dogun errenkadan ikusi daikezunez:*

Z	ERAKUSLEAK	LANAK	NOIZ	IKERLEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	IKASLEAK	EGÜNEKO	ORDUKO
I	Gráficos Españoles	Erbil-lanak	1970 7/16- 7/29	1.707	794	474	439	284	142
II	Cardenas, Sanz Zuriarrain, Ameztoy	Olioak	1970 8/23- 9/11	2.752	1.162	829	761	306	153
III	Nestor Basterretxea	Buztin-lan, Irudi, Olio	1970 9/17-10/7	1.584	673	355	556	158	79
IV	Jose Manaut	Olioak	1970 10/9 -10/23	2.680	1.126	477	1.077	268	134
V	Agustin Ibarrola	Olioak Erbil-lan Argizai	1970 10/30-11/13	1.589	658	342	589	159	79,5
VI	Luis Saez	Marrazkiak Olioak	1970 11/20-12/6	1.047	423	127	497	116	58
VII	Arturo Acebal Idigoras	Buztin-lana	1970-1971 12/8 - 1/3	1.515	620	209	686	101	50,5
VIII	Bienabe Artia	Olioak	1971 1/18- 2/1	763	246	82	435	85	42,5
IX	Jose Ortega	Erbil-lana	1971 2/21- 3/3	624	272	67	285	90	45
X	UR taldea	Ur-margo Olioak	1971 3/10- 3/31	815	263	78	474	68	34
Danera 23 Erakusketa, 1970-7-16'tik 1972-5-15'ra =				37.310	12.822	6.067	18.421	162	81

Agerbide au ulertu daikezun, Erri-biltoki oneik, astelen, eguasten, bariku eta jai-egunetan, ordu biña egunero zabaltzen dirala jakin bear. Astegunetan, illuntziko zazpiterdietatik bederatziterdietara, ta jai-egunez, eguerdiko amaikaterdietatik ordu bateterdietara.

Or ikusten danez, erakusketetara joaten diranen artean alde aundia dago. Ta gure ustez oneik dira eragingarri aundienak:

1) *Ertiakin ezer-gitxi izaten daben asierako ikusi-gura zirikalaria. Iñoiz* 300 *ikusie lenengo egunean.*

2) *Erriko jaietan izaten dan danera eldu-gurea. Adibidez: José Manuat'en erakusketan,* 857 *ikerle izan ziran egun baten bakarrik.*

3) *Eguraldia; euria ta otza kaltegarri, ots; Arturo Acebal Idigoras'en erakusketan, utsetik bera* 8 *grado ziran biltoki barruan.*


4) *Edegitze egunen etena (astelen, eguasten, bariku ta jai-egun) eta ordu biren laburtasuna, eta orrek eraginda ikusle-gaien artean sortzen dan zalantza, naizta aurretik ondo zabaldua izan salerostoki eta erriko aretoetan zertzelada guztiak.*

5) *Tartean jai-egun geiago daben erakusketetara letorken geiagotza.*

* * *

Lenengo amabost erakusketen zabaltze egunen artean egindako azterketeak, 23.905 *ikerle zirala, bataz beste, au erakutsi dau:*

EGUNAK:	IKERLEAK BATAZ-BESTE	
ASTELEN	101	
EGUASTEN	93	= 309
BARIKU	115	
JAI-EGUN		313



Ta ara zelan argi agertzen dan, igandeetan beste asteko iru egunetakoak danera diran aiña izaten dirala.

* * *

Neurketa ori egitean ez doguz buruan izan urrengo batzar oneitara etorri ziranak: Aldundegi'etako Jakintza Bazkunen V Batzarra; Izparketa Bazkunen Alkarteen Batzar Orokorra; Bilbao'ko Gotzain jauna; Administración Local izeneko Zuzendari Nagusia; Bizkai'ko Información y Turismo'ko Ordezkaria; Deusto'ko Ikastola Nagusian eta Bilbao'ko Ikastola Nagusi Azke'ko Decanoak, eta beste jakintza, idazkintza ta ertigintzako asko ta asko.

Eziña da oraingoz, Jakintzarako Erri-biltoki oneitan erakutsi danaren aberastasuna neurtzea, ain izan da ba ugaria, bai ertilari, bai ertilanen aldetik. Urreratzeko asmoan auxe agertuko dogu: Milloi bi lauerleko balio ebazan aberatsenak, eta 195.000,— lauerleko merkeenak.

Erakusleetarik geienak, Jakintzarako Erri-biltoki onein oberako, euren lanetarik batzuk orrein eskuetan laga dautseez; alde batetik erakusketa edegi bat lortu al izateko, ta bestetik urrengo izango litzaken Erri-Etxe Ertitegia'ren oiñarri lez izateko.

Bilduma onetan, 14 olio, 5 *buztin-lan, irudi bat eta* 25 *marrazki dira, laureun bat milla lauerlekoren balioz.*

Biltoki onein eragintzarako erosi diran gaiak askotarikoak izan dira, naita naikoa izan ez aretook gorenean erabilteko. Emengo oneik dira:

1.—*Soiñu-ots zabalkin sail bat, stero indargarri, magnetofon ta* 16 *ozengaillu-altabots.*

2.—*Erakusketak azaltzeko era askotako tresnak: buztin lan eta irudientzat oiñak; marrazki ta laukientzako euskarriak; soiñekoentzat kakoak...*

3.—*Amabost arasa-leyatil; idazti, bialkin eta diru-aleen erakusketarako.*

4.—*Erákus-mai bat; erreskada-agiriak zabaltzeko maitxo bi; aterkin gordeleku bi, aulkiak eta era askotako tresna txikiak.*

* * *

Erakusketa bakoitzak bere agiria izan dau, ta orreitarako idatzi izan dabenak onetxek izan dira: Antonio Bilbao Aristegi; Vicente Aguilera Cerni; José M.ª Moreno Galván; Pedro Laín Entralgo; Antonio Saura; José de Artetxe; Angel Ortiz Alagau, ta erakusle ziran ertilariak eurak.

* * *

Oraiñarteko erakusketen ondorena, onuragarri ta pozgarria izan dala uste dogu, bai ugaritasunetik baita egokitasunaren aldetik be, ta Biltokiak sortzean izan ziran asmoak bete dirala be bai, au da; jokabide ta nortasun ezbardiñak dituen ertilari ta erti lanen etenbako ikusketa lasai ta zeatzak sortuko daben erti-sena indartzea.

Jakintza-Etxea sortzen ez dogun artean baiña, gaur arte lortu al izan doguna makala izan dala uste dogu, ta bearrezkoa egiten jaku beste ekiñaldi berezi batzuekaz osotzea: jakintza ta erti zabalkunderako ikasketa laburrak, itzaldiak, eres-saioak, abesti ta olerki eskeintzak...

Biltoki onein jo-mugan, ikasketa aroan diran gazteak izanik, egokia izango litzake, euren irakasleak lagun dabezala ikerraldiak egitera etorriko ba'lira, ta orretarako, Biltokiak egunero zabalik izatea bidezkoa da.

Orretarako, edegi-orduak ikastaro orduetan aukeratu bear, larunbatetan-edo, euren eskulan, kirol eta, jakingarrietarako aukeratuak izan diranez.

* * *

Biltokiak egokitu al izan eta ekintzetan jarduteko, Durango'ko Udaletxe'koak eta Bizkai'ko Salerosketa, Langintza ta Itxasketa Bazkunekoak laguntza eskupekoak emon izan dabez.

Eta oneri, baita ertorri diran ertilari, naiz beste laguntzaille guztieri, eskerrak emon bearrean gara. Eskerrik-asko ba, biotzez.

JAKINTZARAKO ERRI-BILTOKIETAKO
BATZORDE ERAGILLEA

DURANGO BASAMORTUAN OIUKA?



GEREDIAGA Alkarteak dituan ekintza sail ugarietan murgilduta dagon «GEROA» taldeak antzerki ertiarenganako zaletasuna zabaldu gura dau, ba-daki ba, gaurko aurrerapenak eta ondo-izate bearrak ia ito dauskuen asmoen azaldu-bide au, onurakorra dala gizonaretzat, berez eta gizarteko alea danez.

Talde onek, orain zazpi bat urte izan eban bere asierea. Jakintza edo ekintza ona baiño nabarmenago eban bere egin-naiaren bultzadea. Ortik eta aretorik ez aurkitzetik, or ibilli giñan noraezean durangoar basamortuan, ainbeste ta ainbeste tokietan gure saioak egin edo erdi egiten.

Ta orrela, noizean beinka ta uste-gabean antzerki lanak agertu al izan ditugu. Ta, alegiñak alegin, jakingarriak izan dirala beti uste dogu, bai gaieren naiz idazlearen aldetik.

Bretch, Buero Vallejo, Ionesco, Muñiz, Pirandello, Tagore, izen aundikoenak, edo uts egin bear izan gendun Vodanovic'enak eta beste askorenak, gaurko itxurakoetan eta arriskudunetan jardun dogula diñotsue.

Orain, zorionez, ba-dogu geure aretoa: Durango'n bere jatortasuna erakutsi al izan daben Igandeetarako Aretoa. Lenago, antxina baten, or izaten ziran antzerki areik askoren gogoan ei dira oraindiño (len miña ete?).

Leen-min ori, nire galdera bat lez doakitsue, ta ara zergaitik; Ez dogu, ez, ziurtasunik zaletasun orren iraun izatean; or zear esaten daben antzerkiak ikusteko gose orretan. Ara:

Aurrera garoazan urte au, ezaugarri zeatza dogu guretzat. Aurrentzako ekiñaldiak, Luis Simon'en «Y va de cuentos»ek izan eban garaipenak gaur arte iraun ba'dau be, Bilbo'tik igaro diran antzeztalde batzuk, igeska joan baiño len, Durango'ra ekarri al izan doguz.

AGUAVIVA, ELS JOGLARS eta ANEXA balleta; Astarloa Aretoan, eta gureak lako erri baten dagon diru-aukereak lagunduta agertu legikezan onenetarikoak dira. Ala ta be, ondorenak beti galbidean izan doguz 13.500 laurleko galtzeraiño. Ta, eskatu ziran laguntza guztiak eldu ez diranetik, taldekoen bizkarretik ordaindu dira. Bultzakada ederra aurrera jarraitzeko!

Baiña, aurrera goaz.

Bai, aurrera goaz, naizta benetan siñestu ortik dabiltza esakun antzeko oneik, «Antzerkien Erdian-lotzea (zentralizaziñoa)», «Uriburuetan ezik ezin da iñon ezer onik ikusi», zaletasun-eza ezkutatzeko estalkiak besterik ez dirala. Onetariko ta beste era askotako jakintzak eta ertilanakanako zaletasunik eza.

Or aipatu ditugun iru erakusketa orrein ondoren, «Taller Cero» taldeak, J. A. Castro'ren «Tiempo de 98» eskeiñi euskun. Ta ontxe bertan, «En alta mar» eta «Pluf el fantasmita» antzerkiak gertatzen diarduez, Bagillean agertzeko asmoan.

Bitartean, Akelarre'gaz artu-emonetan gabiltz, ea noiz ekarri al izango ditugun Durango'n lenengoz agertzeko.

Ta, danau, berotasun aundi barik, baiña gure lan onetan onuragarririk be ba-dala siñesturik. GEROA, aurrera doa!


Roberto ANDUEZA

«GA»

"BILBAO"
BABES-ARO ALKARTEA
Ezbear-Su-Bizitz-Lorreta
Lapurketa - Eten - Bitariko
Lanabes - Etxegintzan orokorra-
Bizitz'baltsa.
Etxe nagusia:
Rodríguez Arias, 15.
BILBAO, 8
Etxe ordea:
Zumalakarregui, 15
DURANGO (Bizk.)

GURIA
Akeit-etxea
Santa María, 17
811000 Urrutizkiña
DURANGO (Bizkaia)

URTIAGA
IDAZTITEGIA
Idatz-geletarako gaiak eta idatz-tresnak
Montevideo Ibilbidea, 1
810281 Urrutizkiña
DURANGO (Bizkaia)



«GE

GOGOKOA

DURANGO ERKIKO JAI-ARETOA

ta bere

DISKOL-SAIL BEGIKO TA ENTZUNA

Zumalakarregi, 15

81 10 79

Urrutizkiñak

81 17 57

DURANGO (Bizkaia)

ANBOTO

Akeit-etxea
Goienkale, 18
811020 Urrutizkiña
DURANGO (Bizkaia)

MUNITXA

AZKEN-OIALAK

GAURKO JOSKERAK

Montevideo, 4
811295 Urrutizkiña

DURANGO (Bizkaia)

NORA GOAZ KIROLAK BE BAI

ANDONI DEUN BIAK

Noz altxatu zan emen, Urkiola'ko Santutegi au? Ez dakigu ziur. Antxin-antxinan izan zala, bakarrik...! Iya millaren bat urte.

Zelan edo zergaitik? onek bere erantzun txarra dau. Ba dau or, agian, zer ikusirik Anboto'ko sorgiñak. Ikusi, bestela, Euskalerriko San Anton'en ermitatxoak... geienak sorgin-kutzusko bazter basatietan... Eta Urkiola, Anboto'ren begiz-begi...!

Mari... Anboto'ko sorgiña, izadiko gidari ta abereen zaindari. Ta, bardin, gure San Anton be. Eta ez ete da au, bertako jentillak kristautu ziraneko ezaugarriren bat? Ba, sarritan, euren siñismena aldaturik, bardin aldatzen ebezan euren zaindariak, ez baiña lengo otoiz-toki ta oiturak...

Oindiñoko oiturak alango zertxoren bat adierazotzen...!

Ondo ageri dira, oindiño, Atxarte, Mañari ta Otxandixo'tik bertaraiño dotozen arrikaltzadak. Artaberde, esaten eutsen gizona, eruen arduradun zan, oraintsu arte. Bertako jai aurretiro, aien arri galdu guztiak barriztatu, ta ertzeko sasiak garbitzea, zan aren eginbearra.

Eta kaltzada bakoitzak... ermitatxo bat aien eldu-buruetan. Bein erromesak ara ezkero tink egin, soiñekoak antolatu, ta eliz-apainduriz jantzitako abadearen atzetik, kantuz eta errezuz joazen Santutegiraiño. Eta an, gero, emoten egun guztia, meza, errosario ta kurutze-bidea ta abar eliz-jaierak betetzen...

Eta asko laguntzen artan bertako sakristauak. Onek emoten eutsen Kristo'ren nekaldia, dana bertsotan emon be, ta bardin bertsotan santuen bizitza ta aien mirakuluak. Ba eban sakristau onek beste lanbide bat, urtearen buruan.

Erromes-kapusai luzea soiñean, eta arran bat eskuan, Urkiola'rentzat eskean ibiltzen zan bide zabal guztien zear, otoitz luzeak jaulkiaz. Eta baserrien atadietara ezkero, arranari eragiten eutson, bertakoen zai. Eta baldin etxean abere eririk ba zan, arrana ur bedeinkatuz beteta, aregaz bein eta barriz bedeinkatzen ebazan, eta gero, arran aren gaiñetik igaroerazten.

Urkiola... antxiñetako Santillo-erromesen bideetako baten ertzean, gaiñera! Eta bide orren, leku baltzenetan. Etzan, izan bere, gauz polita, Mañari'tik Otxandixo'raiñoko iru legoako baso baltzen zear ibiltzea... Ala, adierazotzen dabe, beintzat... Txakur-zulo, Lapur-zulo, Lapur-erreka, ta orrelako beste leku izenak.

Orregatik, Santutegiak erromes-etxe aundi bat eukan, alboan; eta bertan emoten eutsen erromes guziei: sua, gatza ta etzangua.

San Anton zarrak, lagun bat alboan. Padua'ko Antonio, lur ontan bizi zala, emendik igaro ta bertan meza emon ebala, ta geroago, aldareetako santu egin ebenean, Urkiola'ko aldarean ipiñi eben au be. Antonio bi doguz, arrezkeroz, Urkiola'n zaindari: zarra ta gaztea. Zarra, gizaki elduen zaindari; ta, gaztea, maiteminduena. Neskatillak senargai baten billa datozenean, jostorratz bat artu, zuria, bizargorria nai dabenean, eta baltza, burubaltza gura dabenean, eta santuari sartzen dautse bere oiñetan. An daukoz agerian makiña bat zizta!

Zizku berean irudi biak, besteetan ikusten ez dana, santu bi oiei izan dautse euskaldunak, menderik-mende, maitetasun eta jai-eskeintzerik aundiena.

Il onen 13'gnean, bertako jai nagusia.

Egun ortan, goizeko zortziretan asiko dira Urkiola'n, Mezak, eta ordurik-ordura jarraituko. Eta arratsaldean, 4'retatik zortzirak arte. Gotzai jaunak emongo dau amabietako Meza nagusia, ta Abadiño'ko abesbatzak abestuko. Ordu bateko mezaren ostean erri bereko umetxoak dantza-saioak egingo dabez. Urrengo domekan be bardin izango da.

URKIOLA'KO ABADEA

Durango'ko jaiak dirala-ta, Arieta'tar Anton'egaz alkar-izketa bat egiteko aukerea izan dot. Danak dakie Durango'n nortzuk diran Arieta anaiak, baiña gure izparringi au beste toki askotara eltzen dan ezkero eurantzat be azaldu bear dodaz batu dodazan eretxiak.

Arieta'tarren artean ez da Anton bakarrik izan ostikolaria, ez. Euskal kirolarien artean nork ez dau ezagutzen Eneko Arieta? Au, Anton'en anaia da; onek bultzatu eban bere anai gaztea ostikoketara.

Ba-da Durango'n beste kirolari euskaldun bat be, ta oso ezaguna bera: Gandarias txirrindularia. Baiña gure orriak laburrak diran ezkero, ezin oraingoan bere eretxirik agertu. Beste aldi baten, beronegaz alkar-izketa bat egiteko aukerea izango dogula, uste dot.



Ona emen ba, Anton'egaz izan dodan alkar-izketan erabilli doguzan gaiak:

—Noiz eta nun jaioa zara, Anton?

—Durango'n jaio nintzan, 1946'gngo Urtarrillaren lenengoan.

—Beraz, ogeitasei urte bete dozuz, ezta?

—Bai, orreitxek danok edo orretxeik besterik ez.

—Ezkondua zara?

—Bai, ezkondua naiz, ta semea ta alabea daukadaz. Euskera gitxi dakit nik, baiña nere seme-alaberi euskeraz egiten alegintzen naz.

—Zenbat urte zenduzan «futbol» ean asi ziñanean?

—Amalau urteko nintzala asi nintzan Atleti'ko gazteen aldran. Arrezkero ez dot talderik aldatu, beti Atleti'an izan naz, gorengo maillara eldu arte.

—Noiz asi ziñan jokatzen Atleti nagusiagaz?

—Zortzi urte daroadaz Atleti nagusiagaz jokatzen, 1964'gngo jokaldian asi nintzan.

—Ta, internazional lez zenbat bidar jokatu dozu?

—Españi'ko lenengo taldeagaz zazpi aldiz, eta 23 urtetik berakoak deritxonagaz ez naz gogoratzen zenbat bidar baiña ainbatetan izan nintzan.

Ta, begi gazte biziok amesetan lez geratu dira, ainbeste ta ainbeste ekiñaldi ta burrukak gogoratzen lez. Orain, «ligea» amaitu da; Atleti'aren jarraitzailleak ez dira lar konforme geratu... baiña laister «kopea» asiko da:

—Emoiztazu «kopa»rako daukazun asmoaren barri.

—Auxe esan bear dautsut: alde aundia dagoala «ligea» jokatzetik «kopea» jokatzera. Atletitarrok, «kopea» jokatzerakoan, beti izan dogu zorion obea; bear ba'da, aurka zelango taldeak jartzen diran orretan egon dago aldea.

—Irabaziko ete-dozue aurtengoa?

—Ez da erreza izango, baiña alan izan dedin alegiñduko gara.

—Kirolari bezela, zein izan dozu zure atsegiñik aundiena?

—Atleti'gaz «kopea» irabaztea, duda barik!

—Zein beste kirol jatsu atsegin?

—Pelotea ta txirrinduketea.

—Durango'ko euskal liburuen azokan, iñoiz, euskerazko idaztiak erosten ikusi al izan zaitut. Zein gai irakurtzen dozu geien?

—Geien historia arlokoak, batez be Durango aldeko edestia dakarrenak; auxe jat atsegiñen.

Auxe dozue jaunak, Arieta'tar Anton'egaz, Ezkurdi'ko ibiltokian izan dogun alkar-izketea. Eskerrak Anton, AGUR'en izenean, eta aurtengo «kopea» jokatzean zori-ona izan daizula, Atleti'ko talde guztiagaz batera.

GORIGOLZARRI'TAR XABIER

BIZKAI'KO AURREZKI KUTXEAK, naiz Bilbo'n bertan edo gure eskualde osoan, erri-ongintzan eta jakintzazko egiketa zabalenak betetzen diardu, eta osagarrietan be garrantzi ta eragin aundienetarikoak.

Zure aurreratuarentzat egokia:

BIZKAI'KO AURREZKI KUTXEA

Etxe-ordea Durango'n
Ezkurdi zugaztian, z/b.
81 04 45 Urrutizkiña

DURANGO (Bizkaia)

IÑAKI LINAZASORO'REN LIBURU BERRIA

PERRETXIKOAK

Neurri, mami ta irudi aldetik, oso atsegiña izan zaigu liburu au. Lenengo aldiz perretxikoei buruz liburu bat euskeraz argitaratu dala. Ba zan garaia, Ikasleentzat idatzi du egilleak. Bere elburua errexa da; lenengo arraizoia, perretixkoak Euskalerrian nunai ditugu; bigarren arrazoia, pozgarria da billatzea; irugarrena, ta oso ona osasunentzat ta gure izadi zoragarria ezagutzeko bide egokia.

Uste dut liburu onekin, irakurlea berealaxe asiko dala perretxikoen billa. Liburua irakurtzen errexa da, asmoak garbiak ta naikoak. Gaiñera ba daude marrazkiak ezin obeak, oso ondo egiñak, politak ta atsegiñak. Balio dute gelak apaintzeko. Margolaria J. A. Perez Fabo degu.

Asko laguntzen du liburu onek perretxikoak zer diran ezagutzen ta lan geiegi gabe. Aolku politak ematen zaizkigu perretxikoak nola biltzen ikasteko.

Garai onean dator liburu au. Gaur perretxiko biltzea erri jolasa degu. Igandetan etxeak ustutzen dira ta basoak gizasemez beteak izaten ditugu perretxiko billa.

Ba daude atal batzuek asko lagunduko dutenak perretxikoen sasi letradoen jakintza jorratzera.

Liburu eder onen bidez, uste dut gure erriak asko irabaziko dula; ikasiko degu izadia maitatzen, errespetatzen ta zaitzen. Gutxi al da? Izadiko gaiak azaltzen dituzten orrelako liburu asko bear ditugu Euskalerrian.

Gauza bat aztu zait esatea; liburu au biotzakin egiña dagola. Nola ez? Idazlea Iñaki Linazasoro degu, izadi zale porrokatua. Gure ibaiak garbitzeko berak egindako lanak, zerbait esan nai dute. Etorkizunak emango dio arrazoia ta saria. Alderdi ortarik Euskalerriak ba ditu berekin zorrak. Gizon ernea degu gaiñera, bere begi zorrotzak ba daki baztarretako mamia ta ustela bereixten. Ikusiak ez ditu ixillik gordetzen. Ba dakizki esaten, txukun, argi ta zorrotz.

Gaiñera euskaldun benetakoa degu. Euskera maite du. Oraingo liburu onekin bigarrena dauka euskeraz idatzia. Lenegoa, H'gabeko Umoria, Euskaldunok H'ren aurrean, ba genuen umorearen bearra.

Euskal kulturaren alde lana asko egin dezake Iñaki Linazasoro'k; gaztea da, ondo idazten du, euskera errikoia, errexa ta garbia darabilki. Lan askorik gabe ulertuko diote euskaldun geienak.

Liburu au, Gipuzkoa'ko Aurrezki kutxak argitaratu du. Gure zorion beroenak. Orrelako liburuak erri baten mailla igotzen dute.

Liburu au beren semei erosten dieten gurasoak, gauza eder bat beteko dute. Ondo egiña arkitzen degu, bearrezkoa genuen ta euskeraz dago.

LATXAGA

NOLA ALKARTU

Guziok alkar, alik eta onduen bizitzeko, zein bideri jarraiko diogu? Zelan bide ortan alkartea batuagoa izan? Batasunaren goraberak dirala-ta, zenbat idazten dan! Bi alderdietakoak arrazoiak izanik, nori eman arrazoi ori? Zein da Salomon aundia. Umetxo arekin artu zuan erabakia artzen ez ba'degu, egizko amak deadar eta karraxia egingo du. Orduan ikusi zun Salomon'ek egiazko ama ura zala, entzun zionean: «Ez erdibitu nere semerik, ilda ikusi baiño len naigo det beste ama orrekin bizi izatea».

Batasuna, zein izen eder eta aundia! Nola lortu leike? Ontan, alkar joka jarraituaz? Itz eta pitz alkarri txarki esanaz? Euskerak beti izan ditu areriyo purrukatuak. Ez nintzake arrituko, baldin areriyo oiek euskerarik tutik ere itz egiten ez dutenak ba'lira. Baiñan, okerrago zaigu ikustean, gere artean daudela okerrenak. On egin bearrean, bakoitzaren arrazoiz, besteen ondamena lortzen gabiltzalako.

Berrogei urte auetan, Euskerak beti izan ditu bateko bestekeriak. Jakiña, iñoiz ontzen, onelako izpiak berritu, geitu ta abar. Guk ere idatziko genduke oraingo euskeranto orretan; ez dalako zailla, euskaldun geienak ulertu ere egingo ez luken eran idaztea. Eskuan artuko genduke «diccionario» ori ta idatzi. Ez ordea gu (ni beintzat) ortakoa izan. Gure ta idazlari geienen idazketak, erriko usaiaz idatzi oi ditugu, errez ulertzeko, ta ez erdel nastukerean.

Ortarako, guziontzat onena, bakoirzaren erriko itzketan egin. Batzuk esango dute beren kolkoan: bai, naparrak, arabarrak... bizkaitarrak eta guk gipuzkoarrok, guziok, batekoz bestera itzegiten degula, ta zer esanik ez, Bidaso'z bestaldekoak. Nola idatzi zazpi alderdietakook batera? Idatzi diot, alkaritzegitean ez degulako nabarmentzen ez atxerik edo beste oraingo naspilketarik.

Ez naiz arritzen ere, gertatzen danakin: alkar ondo batuak irautzeko zail egiten zaigula ikusirik. Zergaitik? Zergaitik izango da ba, alkartasunik ez degulako. Aranatar edo agirretarrok ez degu aldaketarik nai. Joan zirala orduko uneak? Eta zer, ez al da Euskera betikoa ta beti bardin?

Gure arek Caracas'ko euskaldunen etxean esan zitun itzak, urte asko ez dirala, ez zaizkit aztutzen. Bere itzak ziran: «Maitasun krisisa da munduan». Ta alan; «Barkatu bai, baiñan, ez aztu». Bere itz guzietan ori artu zun neurritzat: «batasuna» orrekin ikusten zualako «pakea».

Gizon piñak ugari izan ditu euskerak, naizta piñ oiek beste mundura joan. Oraindik ordea, ez da galdu itxaropenik, eta gazteagoak aintzat artu bear lituzke aien gogoak. Zer lortuko degu burrukan? Burrukak ez ditu ezta-baidak besterik sortzen; alkarren ikusiezíñak besterik ez. Nola leike ontan bizi, izparringi batzuk batera idazten eta besteak bestera? Ez ote dago bitarteko alkartasunik? Gogoan izan ditzagun jun ziranen asmoak: batu, alkartu, anaitu ta azkenik EUSKERA maitatu ta edertu!

Elgeta'ko alkartasuna ikusirik, ta ango alkarrenganako anaitasuna, une zoragarri arek eman zigun poza, ta batez ere nabaitu, oraindik ba-gerala zeozer, zaarragook. Ez uste izan, an, zarrak bakarrik batu giñanik. Gazteak ere an zeuden ta pizkor gaiñera!

Geroztik, bati entzun nion emen: «Arena-zatarrak zerate zuek, faszistak besterik ez...» Alajaiña! Ori ere entzuteko giñan! Ba-dagiku baiña loritoak bezela, zabaltzen duten beste konsigna bat dala. Nik galdeko dizuet: «Eta zuek, zer zerate, leniñistak...?

Neri beintzat «ista» guziak ez didate onik egiten. Gure pentsakerak ez dira olakoak. Ni erdikoa naiz, ez bateko ez besteko. Euskaldun piña, igandero meza entzuten detana, ta besterik ez.

Gure batuketa artan, alkar ezagutu giñan. Anaitasun onena zegon, ta ez txotxolokerietan. Anaitasun bizian, ez alkar azpiratze jardunean. Datorren urtean, Jaunak nai ba'du, alkartuko gera berriz.

Batasun eran garrantzia; bertan batu ziran gizon ospetsuak zeukaten naiko garrantzi: A. M. Labayen jaunaren izketaldiak, Mokoroa'renak, Basarri jatorraren itz eta bertsoak, Kamiñazpi piñaren zer esanak, Bordari'ren itzegin bearrak eta eragingarriak, Arenaza'ren itz-aurreak, Etxaniz'en alaitasuna, Latxaga gure maiko zuzendari bezela, Yurre, kaputxinoaren txorabiatzeak, Beiztegi'ren antolaketak, Gotzon Urrutia, Udalaitz, Oñatibiak, Abeletxe, Begiriztain, Olazabal, X. Peña, Zaloña, Yurramendi, Zeleta' ren alaitasunak. Izen auek bakarrik izendatzen ditut. Beste egundaka aienik ez det nik. Eta, gazte aienak zer? Estitxu'ren abesketak, abar eta abar.

Eta, Gallastegi aitaren itzaldia? Izatez gizon luze aundia danez, bere itzak aundiagoak ziran, Euskerari eskeiñi zizkion itz aiek, bere abots gogor eta aundi arekin, gu guzion naiak bete zitun.

Jaunak, batu, aldendu ez!

E. OZKIN

ZERBAIT OLDOZTUZ

Euskel arazozko eztabaida, gure erri maitearen etorkizunari buruz dabilgun burruka ixil ta, minberatsu, larri onetan, nik esango neuke bide bardiñetatik, io ibilli ezarren, aletxu nastatzaille batzuk kendu ezkero, danok diardogula errimiñak eraginda, elburu, egoki ta on batera, eldu, irizteko ametsik gordin, ederrenez.

Baiña, «buru ainbat aburu», bakoitzak bereari eutsiz, bakoitzak bere arloko irudimen, oldozkera ta, gogozko bideari alako berekoitasun ta, itsukeriz darraitso, besteengandik erabat alderatu ta, igesiz...

Gauza bearrezko, ona ta, egokia, bidezkoa da bakoitzak bere aburua izatea. Aburua daben gizona bere buruaren iabe izan oi da. Nortasiunaren iabe. Gatxa zalla, izango da, bere ustetik atara ta, gogoko ez iakon pentsakera, gogaibidez beste alderdi ezbaiko batera eroan ta, geiagoko barik menperatzea indarkeri zitalez.

Gizaki euskotar ori artalde batean ez da beti gogoz arkituko. Batez bere artalde ori maltzur ta atzerri kutsuzko artzaiak zuzendua izanik Burua azke nai dau ikusi, azke izan. Gizona izan, ez abere bat. Aburudun gaztea, urduri, maitasunak bultzaturik, odolaren adiñeko bizitasunez, burrukalari ta ausartsu dakusgu esiak, kateak ausi guraz, lenbaitlen, erri-elburu, nortasun ortara irizteko amets ta uste zindoetan.

Ta, ikusirik oso astiro dabiltzala ta, zein aspergarri, neketsua dan elbururako bidegitea, gure aurrerebaide zigortu au... Ikusirik bere indar-alegin guztiakaz ez dabela lortzen nai dabenaren urrik bere... irrikitzen, erdi-gogaiturik diardue esanaz: «Emen ez da ezer egiten» «Egin bear litzakenik ez da egiten» ta, abar.

Edota, beste era ontan oiukatuko dautzue: «Begiratu beste aldera» «Begiratu beste arantzagoko artara» «Orreik bai egin ta desegiten dabela» «Orreik dira mutillak». Nik gogoko, kutun dodaz onelako adizkide kezkatsu, urduri, langilleak. Ba dakit arrazoi aundia izaten dabela gauza askotan, oso aundia. Baiña, irri dagit laster-nai begiko ta larri ori nabaitu ta ikusiz...

Gazteak dira oraindik, eldu bakoak. Or dabiltzaz minberati, esiak, kateak ezin eten, ezin apurtu, ezin birrinduz; errerik dakustaz erriaren izakera, bere maitasunean, gizadiaren gizabide ta izakera, gizarte aldakuntzatan oartu, sakondu, barruratu, begiratu ez dabelako.

Ta, bizitza, gizonaren bizitza oso motza, laburra da. Iaiotzen garaneko gizarte araudi batean topo dagigu. Gizon izaten asi ta, gure aldamenean zer gertatzen dan konturaizen garanerako ogei urte bete doguz. Ogei urte eder! Ostera, izadiaren ta gizadiaren aldaketa, geldiro doaz gure bizitzako adin ta bizi-neurriz neurtzen badoguz.

Ez da iñor iaio izan gizarte, erri aldakuntza baten asiera ikusi ta, osoro bere eginbearra beteárte bizi izan danik.

Zerbait aldakuntza lortu izanarren guk, eralguntza batean parte artzen dogunetik lasterrera, urteak aurrera doazta, orra or, ogeitamar, ogeitamabost, berregoi urte bizkarreratuak... Bein berrogeira eldu ezkero, atzetik bultzaka datorkigu gizaldi barria, ogei urteko gizon barriak orpoz-orpo, begiak iriki, zabalduz, garrazkiro begiratzen dauskue... Zarrak geurekoiak, konserbadoriak garala-ta, abar. Zer ez geiago?

Bizia ioan-etorri bat da. Betiari itsatsia, lotua dagon-kate-neurri bat. Beraz, aurrerapen bidean iarraitzeko, gizartea zuzendu ta onbidetzeko osoro ezin dogu lurperatu gurasoak egindako lana. Obetuago, edertuagotu, zuzendu ta aztertu, erabarritu bai. Akatsak ta txarra kentzen alegindu. Gure bizia lasterka doa baiña egiturak astiroago dabiltz. Gauzak guk nai genduken bezin laster ta erara, batez bere eskuak lotuta ezin dira moldatu ta egin. Ez atsenden. Ekin gogoz. Egi sakon au ezagutuz ta, iakiñik gure biziak ez daukala goizetik gaberako aldakuntza aundiak ikusteko betarik, egin bear doguna auxe da: Egitekoa ondo egin. Frutua bere sasoi, bere garaian etorriko da. Begira nekazaria itxaropenez lurra landu ta mamituz, azia erein ta denpora datorkionean asetuko daben ogia iazoko daben uste osoan.

Norbaitek esan leike: Zer da egin bear dogun lan ori? Zer erein dagikegun azi ori? Gaurkoz beinizat nik esango neuke gure lan, zeregin guztiak gauza bearrezkoenetako batera beartzen gaituela: euskeraz berba, itz egin; euskeraz mintzatu. Auxe da gure iraupen ta oñarria. Etxean ta etxetik at. Al dan toki guztietan ta, toki guztietara euskeraz egin, euskera eroan.

Euskerea da etorkizunera zuzendu, bidetuko gaitun indar nagusi, berezia. Euskereak erritu, geuretu, gizarteratu, nortuko gaitu. Euskerea da euskaldunontzat gure muin, barrua dardaratzen, kilikitzen, loratzen dauskun eresia; gogo barrutik darizkun ur garbi, gardena; izatearen gun, mami, egirik onurakor, zuztarkorrena.

Gizona amaren ugatzetik ikasitako izkuntzan mintzatzen danian, orduan da, benetako gizon, nortasun osoaren iabe. Barriz berea ez dan beste berbeta, izkuntza batean mintzatzean, gizon ori, guzurrezko egitura, bidez dabil ta, ez dau agertzen bere nortasunaren egiazko izaterik. Kutsutua arkitzen da. Ez da bera.

Egiz euskalerrian iaioak euskeraz berba egiteko sentikizun osoaz, gogo biziaz arkituko diran aldi, une zoragarrian... Orduan, gure Erria benetako Erri izango. Orduan Erri bat osotuko da.

Bitartean ekin gogoz, kemenez. Egun aundi ori guk ezagutuko ezpadogu bere, ekin, ba, gure ondorengoak ezagutuko dabe.

Baiña, lanbide neketsu au atsegin ez iakonak ez bedi iarri oztoporik.

MUNIATEGI'TAR SABIN

AZKATASUNA

Pentsatzen dugun une guzietan, espiritua, antxen aurkitzen da. Ez dugu burutapen garbiagaz pentsatu bear, erdi-garbiagaz baizik. Buruera garbiak errazegi bururatuak eta gogoratuak diralako, bururakizun garbiak garrantzia galtzen du. Burutasunakin ez da pentsatzen, espirituaz baizik.

Pentsatzea, norbera aurkitzea da. Alegia, illunpetik argitaratutzea. Paskal'ek diño: «Ate danak irekitzen dituan giltza, onartzekoa ez da, ate bat irekitzen duana baizik. Espirituaren egitea alde ontatik, azterkatzea da. «Filosofatzea», iltzen ez ikasirik, bizirik irautea da».

Gizonaren benetako lan eta urratsak, alkar-izketara zuzenduak izan bear dute. Olerkia, ludiarekin mintzatzea dalarik, maitasuna, urkoagaz mintsatzea da, ta otoitza, Jaunagaz. Beraz, pentsamentu au, benetakoa danez, Platon'ek diño: «Erriak eta pertsonak, anima beraz mintzatzen aspertu egiten dira, ta au, sarri gertatzen dalarik, aspertze onengandik ondamendirik aundienak sortu ditezke, bai pertsonalki, baita gizarte bezela ere».

Gizona, bakardadeari begira dagonean, bere biotzaren inguruan murgildurik dabil. Gertakizun onei buruz, Nietzstch'ek diño: «Auxen duzu unea! Erabaki zazu! Erriak eta pertsonak askotan, une ontatxen, bide bat artu edo uzteko garaian aurkitzen bait-dira».

Atsekabe ta ito bearra nabaitzen dugunean, orduan eta urbillago ikusten dugu eriotza. Ezaugarri au, azkatasuna da! Ez dugu beraz beiñere aztu bear, eramankizun au, ta eriotza onartzea, azkatasunaren baldintzak dirala. Gizonak betiko bizitza ikusiko ez ba'lu, eriotzaren erio ez luke nabaituko.

Beraz, atsekabe ta naigabeak eraman nai dituan erriak, begirada batean, eriotzaren itxura du, baiña bide ontatik azkatasuna iritxiko du!

Itz batean: Erri au, BERPIZTU DA!

OSARTZU

ERRIETAKO BARRIAK

Tolosa

ARTE-ERAKUSKETA

Euskal-kultur Amabostaldi ontan, Tolosa zarrean, Arte-erakusketa bikaiña izan degu. Aranburu'ren Jauregi apartan, zenbat margolari ta eskultore ez gera bildu! Euskalerri osotik etorri dira, alkartasunezko ikasbide ederra emanaz.

Ez naiz asiko noski, etorri diran guztiak aipatzen, baiña oiek dira, nere ustez, erakusketa ortan ikusi ditugun lauki ta irudi berezienak:

Laukietan:

Nestor Basterretxea.—Marrazkiak.
Xabier Arozena.—Arrantzaleak; Itxasgizonak.
M. Angel Alvarez.—Paillasoa.
Marta Cardenas.—Erretratua.
Dionisio Blanco.—Nere Euskalerriko giroa.
Rafael Ortiz.—Errian illetak.
Jose Luiz Zumeta.—Gizonak... (abstraktoa)
Arrospe.—Izaba, Etxe zarrak (Marrazkia)

Eskulteretan:

Remijio Mendiburu.—Sugar; Odol zigorra
Bizente Larrea.—Burdin landua.
Txillida.—Mugak.

Norbaitek esango du, noski, artikulo taskar au irakurri ondoren, «abstraktoa» ez dela ulertzen. (Bizi ontan, ainbeste gauza ditugu ulertzen ez ditugunak). Dana dala, Margoa, eskultura —oraingoa beintzat— ulertzeko al da, ala sentitzeko? Gaiñera, abstraktoa, nere ustez, ez dago gaizki, ensaio bezela.

Erakusketa egin da, ta or geldituko da. Euskal margolariak, alde guzietakoak —artea denena ta denentzat da— or alkartu gera gure laukiekin. Alkartu bai, baiñan, noiz arte? Gauza txikietan alkartzen ez ba'gera, nola alkartuko gera aundietan?

Bai, uste det, Artea lenengoa, ta batez ere oraingoa, biotzarekin «ulertu» bear dala, ta ez begiekin bakarrik.

Kimu berria Euskalerrian...

MATXIN

Euba

ERKOLES

Negu-usaiñezko egunak joan besterik ez eta, udaldia etorririk zala-ta, eubatarrak eta auzotegirik askok Erkoles'go euskal-arnasara jo eben orrillaren 21'gnean, aspaldi ontan izan dogun egunik-eta ederrenean.

Ikustekoak izan ziran Arriaundia'ko ASKORPE ta Bernagoiti'ko ARIN-ARIN —neskato, mutiko— dantza taldeak, zuri-gorriz jantzita landa orlegiaren ganean, makilla ta ezpata eskuan, abenda zaarraren areitza kimu barrietan.

Egun aro ederraren ederrak eraginda, toki bertara egin genduan arratsaldean bere, dantza azkatuan Bizkai'an doguzan bikoterik onenak ikustera. Irabazleak oneik izan ziran:

1.—Garramiola-Beitia; 2.—Basagoiti-Mugarra; 3.—Osorio-Mendiolea; 4.—Arteagagoitia lengusuak. Sinko deritxon bat be ba-zan dantzan egiteko, ordua eldu zanean baiña, paparrean bizarrik ezagaitik eta prakak busti bildurrez... pot eta porrot.

Gureak diran jai jatorrai laguntza eskeiñi ta eskuzabal diranak gogoan izatekoak doguz, eta nora jo jakin bear dogu dirua eralgi bearra dogunean.

Emen doguz, ba, garai-ikur eta beste saririk askogaz laguntzaille izan diranak egun onetan: Zeruetan entzute aundidun eta inpernuetan ezaguna dan «BAR MAÑOSO»; «Super Mercado SARAMENDI»; «Justo BILBAO»; «Anton ZABALA» ta «EUBA'TAR GAZTEDIA».

Gogoan izatekoa ta eredugarria da, baita, Erkoles'en eta Euba'n izaten diran jaietan, aurkezlari ta buru bezela, jo-ta-ke lanean ari izaten diran Lourdes ta J. L. Izagirre bikotea; esatekoak, izatekoak eta argibide guztiak Aitor'en izkuntzan azaltzen dakie-ta.

Euba'n eta ingurumarietan barririk asko izaten, da batez bere eiztari panparroiai buruz. Aurrerantz, ba, J. L. Izagirre izango bertako barriemoille. Eta eiztariak, egizale izaterik nai ba'dau, izen onaren jabe izaterik gura ba'dau ...egiaren itxurazgo gezurtxo ondo biribilduak, siñistu erakoak esaten ikasi dagiala.

LANDAJUELA'TAR A.

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

Arrasate

LENENGO JAUNARTZEAK

Igokunde igandean, Jon Ugatzlaria' ren txadonean, emengo euskalsun umeen lenengo Jaunartzea ospatu zan. Eguraldia ezin obea. Mezari ta Jaunartzeari dagokiozanak ondo baiño obeto. Jaunartzea egin zutenen izenak onexek dira: mutillak.—Atxa, Luis M.; Agiriano, Gaizka; Agirrebengoa, Asier; Agirreurreta, Iñaki, Alberdi, Ibon; Aranbarri, Yon; Aranburu; Yon; Arregi, Antonio M.; Arriaran, Diego; Arriaran, Bitor; Astaburuaga, Xabier; Axpe, Yosu; Barrutia, Alexander; Berezibar, Agustin; Berezibar, Xabier; Korta, Luis; Cristobal, Alvaro; Etxebarria, Xanti; Elizaran, Jose M.; Ezpeleta, Yon; Ibabe, Jesus M.; Ibabe, Yon; Lasa, Yon Iñaki; Lasagabaster, Juan Luis; Martiarena, Alejandro; Mondragon, Gaizka; Muxika, Iñaki; Otero, Joseba; Uribesalgo, Eduardo; Yarza, Iñaki; Zabala, Jose I.; Zabaleta, Andoni; Zuazuabizkar, Juan K.; Zuloaga, Jabier; Zulueta, Aitor, eta Bitoria, Aitor.—Neskatillak: Atxa, Ana; Ara, Garbiñe; Arregi, Ma. Antonia; Arizabaleta, Jaione; Arizabaleta, Miren Gurutzne; Arrizabalaga, Ma. Jesus; Astondoa, Bakarne; Axpe, Idoia; Ayesa, Ma. Luisa; Barrutia, Alatzne; Barrutia, Begoña; Bengoa, Anabel; Berezibar, Elisabet; Biain, Ma. Teresa; Bolinaga, Itziar; Bolinaga, Ma. Kontxi; Zeziaga, Edurne; Etxagibel, Miren Josune; Eriz, Ma. Eugenia; Garai, Agurtzane; Iregi, Ane Miren; Lara, Dorleta; Lazpita, Gurutzne; Lizundia, Olatz; Moreno, Itxasne; Muxika, Amaia; Muxika, Miren Karmele; Nuñez, Garbiñe; Uribarren, Agurtzane; Uribeetxebarria, Ma. Arantza eta Zubillaga, Idoia.

Meza-emailleak, Iñarra, Jose Luis eta Aperribai, Ibon jaunak. Mezako irakurgaiak, Elizaran, Jose M. eta Barrutia, Alatzne'k. Erri-eskariak, Agirreurreta, Iñaki; Atxa, Ane; Etxebarria, Xanti ta Muxika, Amaia'k. Jaunartu ondorengo otoiak, Lasa, Yon Iñaki ta Eriz, Ma. Eugenia'k. Parrokiako abestaldeak oso ederki abestu zun. Eleiza jendez beterik, ezin-geiagoan, zutirik asko. Gurasoak ia umeak berak baiño pozago, orrenbeste al ba'da. Oraindik ba-dago fedea. Nola esan, aingerutxo orreri etzaiela kistarikasbidea irakatsi bear?: Jaungoikoari maitasuna, gurasoeri maitasuna, lagun urkoari maitasuna, zuzentasunari, egiari, on-izateari maitasuna.

Eskerrak D. Jabier, egin dozun guzti orregaitik eta zertzeladak jasotzen lagun izan zaitudalako.

IZTEGIA

Gure erritar Montiano'tar Joseba Andoni'k eta bere lagun Urkixo'tar Joseba Erramon'ek, iztegi eder bat atera dute: «IKAS» izenarekin. Euskera-erdera ta beste aldera, bietara egiña. Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n bardin erabilten diran itzak garbi azaltzen, batasunerako biderik onena, ta gure errirako bearrezkoa, bietatik erabiltzen ditugu-ta. Eskatu bada «IRE» izena duan emengo liburutegian, eta beste errietakoak eskatu «Distribuidora San Miguel, Alda. Urquijo, 60, 5.º izquierda, Bilbao, 11», euskal-idazti zabaltzailleeri.

ZAAR-SARITUAK

Il onen bostean izango zuten, erri guztiak lagunduta, euren urteroko jai berezia: Lenengo, parrokian meza. Gero, apari ederra Eskarnetarren ikastetxean, eta sari batzuen zotzketea; sukalde tresnak, ur-berogarriak, jantziak, edari ta janari ta beste gauza asko. Orrez gaiñera, laster izango dute Batzoki eder bat, Udaletxeak emongo dautsen areto eder baten. Ba-dute premiña, or ikusten dira eguraldi otzetan kaleetan zear nora jo ez dakiela. Ba-diñoe baita, euren illerokoa igo egingo zaietela. Onetan be ba-dago premiña, batzuk obetoago ba'dabiltz ere, beste asko bizitzarako lenen bearrenetako naiko ez dutenak ere ba-dira. Loiola Irratian neuk entzuna: Gipuzkoa'ko Mutualida Laboral orrek ba-dituala bi milloe laurleko aurreratuta, ta gertu ei-dago Gipuzkoa'ko zaarsarituei geiagoan laguntzeko, baiña ez ei-dauke baimenik ori egiteko...

ERIOTZAK

Jaunak bereganatu ditu: gure lagun eta aberkide Aranburuzabala'tar Donato; baita Letona'tar Kepe, erri onetan ezagun-ezagun eta maitea zan igali-zaltzaillea; Errate ta Amozarrain'dar Miren Josune, bere bizitzako 23'gn urtean; ta Martinez Larrañaga'tar Karlos. Nere samin-agurra euren senide guztieri biotzez.

EZKONTZA

Beti izan ez nadin izan, izpar itunen emaille, oraingoan barri pozgarria ere eman bearrean naiz. Au da: Orrillaren 6'gnean, Arantzatzu'n ezkondu ziran, Agorria'tar Yon Gurutz, ondarrutar gazte ta euskaltzale zintzoa, emengo neskatilla liraiña dan Beitia'tar Miren Andone'rekin. Zorion aundia opa dautsuet zuen bizimodu barri ortan, eta ondorengoak era izan daitezala zuek zaren bezin euskalzale zintzoak.

UDALAITZ

Galdakano

MADARIETA'TAR BITORIN'ERI

Izparrangi edo aldizkarietan zebait idatziten dogunok buru-austerik asko izaten dogu ta samiñak be ez gitxi, baiña, noizian bein, izaten doguz izpar goralgarri ta beraz atsegingarri batzuk be, ta orretariko bat artu genduan orain egun batzuk ainbat urtean gure errian apaiztzan egondako Mendieta'tar Bitorin apaiz zintzoak Txile'tik bialdutako idazki-agiriaz.

Madarieta jauna, jayotzez ez da galdakanotarra baiña, berton urte askoan gure artean bizi izan zalako-edo, edonon beste erritar jator bat geyago lez aurkeztuten dala esan legike. Eta, ori dala bide Txile'ko Santiago uriburuan edo bere inguruetan aspaldiz aurkitzen diran Artetxe, Gredilla, Abasolo Maguregui, Fernandez-Kareaga ta bai aldi ontan bertan aurkitzen dan «ONU»ko izkuntzitzule dan Izagirre'tar Ander galdakanotar lez dogu, ta, zelan ez, bere agur maitekor bat bidaldu dau erritar guztiantzat.

Bere idazki-agiri ortan gure idazlantxoak aipatuten dauskuz eta, eurok iñoiz irakurten ba'dabez, AGUR'en bitartez izango diran lez, zein bide egokiagorik gure asteroko argi txukun au baiño, Bitorin azkarrai eskerrak emonaz, Txile'n diran galdakanotar guztieri agur xamur bat bidalduteko? Artu egizue ba, gure besarkada anaikor bat AGUR'en bitartez.

JAIOTZAK

Udabarriak lora barriak ekarriten dituzan lez, gizaki barriak be urteko beste edozein alditan baiño geyago jayoten dirala esan legike, gizaldiaren eginkuzun berezi bat ete da?, Besterik eztakigu, aurtengo udabarrian be ainbat jayotza izan doguzala errian; ara emen Orrillaren erdi aldian izan doguzan batzuk: Pineda'tar Dabi ta Ereño'tar Eguzkiñe senar-emazte gazteak euki eben ezkontza osteko lenengo lorea, albatxu eder bat; ugatzatukeran Itziar izen zoragarria ipiñiaz.

Baita egun orreitan semetxu eder bat izan eben Aburto'tar Joseba eta Kortes'tar Pelikite senar-emazte gazte euskaltzaleak, oneik be euren lenengoko arnaria.

Guraso barrien lenengo seme edo albak, geyenetan beintzat, ospegarri edo titulo asko ekarriten dabez. Aite-ama, aitite-amama barri zintzoai be, alegindu daitezala illoba kutun orreik benetako euskaldunak izaten.

EZKONTZA

Orrilla'n 20'gnean Begoña'ko karmeldarren txadon apaiñean, ezkondu ziran gure erri onetako Ogaran eta Ureta'tar Kepa-Mirena mutil zintzoa ta Aurtenetxe eta Altuna'tar Miren-Elixe neskatilla liraña. Zorionekoak izango al-zaree artu-barri dozuen biziera barrian.

OSATEBAKUNTZA

Ia igaro dogun Orrila'ren erdi aldean osatebakuntza gogor bat egin eutsen Bilbo'ko osatetxe baten, Artetxe'tar Andoliñe, Langara' tar Luki'ren emazte argiari. Jakin dogunez, ondo urten eban ebagiketa ortatik eta, lerro oneik argia ikusi dabeneko, bere etxean izango dalakoan gagoz, ta guztiz sendatuta izango al-da.

ORRILLA...

Gure aurrekoak esaten eben lenago, Orrill erdia otzak il ebala ta beste erdia beroak kizkaldu. Lerro oneik idatzi doguzan arte beintzat eztakigu zelangoa egingo daben bigarren erdia, baiña, lenengo amabost egun edo geiagok ia kikilduta euki gaituzala, otzak, bai. Asi ete-da udabarria?

BASA-JAUN

INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

Euskal Erriko ospetsuak

KANDIDA AMA'REN OROIGARIAK

Askotan esan oi da zarrak diranak zar-ipuiak beti gogoratzen dituztela. Bai, alaxen da, eta bearbearra degu ipui oek eta edesti edo istori oek gogoratzea, gaurko eguneko gazteak jakin ditzaten.

Bai, urte asko dira Kandida Ama ezagutu nuela. Nere etxea ikutzen dagon beste urrengo etxean Larrunbide Andrea bizi zan, Kandida Amaren lagun eta laguntzalle aundia eta maiz bere etxera etortzen zan eta ordutik ezagutzen nuen Andoain'go Berrozpe etxean jaio zan emakume argi eta kemen aundiko onen gora-bera batzuek gogoratzeko.

Munita'tar Iñake Lagundi ortako alabak Tolosa'n asi eta beste milla tokian bere pausoak ibilliaz liburutxo eder bat euskeraz egin zuen bere lan arrigarriak guziak jakin dezaten.

Ez nator, ordea bere bizitz osoa azaldu naiean. Ortako liburutxo zoragarri bat egin zigun Munita' tar Iñake, len aitatuak, eta euskera garbi eta ederrean idatzia.

Ezin det bada onera ekarri bat-banaka Kandida amak ibillitako joan-etorri guziak. On litzake, ala ere len aitatutako liburutxoa irakurtzea al duten guziak. Bere liburuaren izena «Izar baten dirdira».

Eta bere bizitz osoko gertaerak azaltzea ezin egin ba'nezake, neronek ikusitako gora-bera batzuek idatzi nai ditut, irakurleak bere gogoan artu ditzan, baserri bateko emakume euskaldun garbi onek egin zituen gauz arrigarri asko jakin ditzaten.

Aspaldi artan ainbeste korapillo askatu eta dirua bildu ondoren Tolosa'n egin zuen ikastetxe ederra josotzeko bere joera luziak gogoratzea beti on izango zaigu. Bere gora-bera oetan, egia da bai, banaka berari galeraztera irten zirala, bañan baita beste asko ere, Jainkoari eskerrak, bere ondora etorri zitzaizkion laguntzera bere asmo ederrak alde guzietan zabaltzeko.

Etxe berriaren azpiko alde guzia urez betea arkitzen zan egun aetan ebi asko egin zuelako eta monjatxuak larri ziran beren ikastetxe aundia (Tolosa'ko kale ederrenean bai zegon) lenbailen zutik ikusteko. Langilleetan ba ziran batzuek bizkorrak bañan beti bezela, bat edo beste gogo gutxikoa izanik, monjatxo aetako batek, Sor Encarnación zan bere izena, beti zirikatzen zion esanaz txepel bat zala, geldo bat zala eta orduan bere lagun batek esan zion monjatxuari: —berak al duena beintzat egiten du—, eta orduan monjatxuak erantzun zion: —eta beste indar guzia zertarako gordetzen du, bada?

Eta monjatxua joan zanean langille alper arrek euskera mordolloan esan zuen: —ori ez da Sor Encarnación, ori da «Sor Ernegazion»— eta guziok parrez azi giñan eta baita bera era. Geroztik gizon ura bizkorragoa agertu zan, itz arrek geixeago erabil-azi ziolako.

Etxe aundia zan bera eta ezin bada egun gutxitan egin. Bañan Kandida Ama an zan beti guziai ondo agintzen eta guziak berari Ama bezela begiratzen zioten.

Gogora etortzen zait Orkaiztegi'tar Patrizio jaunaren izena, Tolosa'ko parrokiko apaiz nagusia, gizon ona egitan, jakintsua eta agintzen gogoz eta gozo zekiena, guzien maitagarria bai zan.

Ez zuen izango egunik bein edo beste etxegintza oni begiratzeko etorri gabe eta langilleai itz gozo batzuek emateko. Gañera Igandetan Santa Maria'ko elizan apaiz nagusi zana Mesa nagusian itzaldi ederrak egiten zizkigun, ondoren San Prantzisko'ko konbentuan beste itzaldi bat egitera eta ondoren monjaen etxe berri au egiten ari ziranai itz on batzuek esanaz.

Bañan ainbeste nekaldi eta naigabe eramanarren bukatzeko eguna iritxi zan, eta jai aundi bat egiteko asmotan goiko gela zabal aundian tolosar eta inguruko asko bildu giñan egun alai bat igarotzeko. Oraindik ez zait aztu guzien poza asi ziranean umetxo batzuek abesten edo kantatzen eta Ibarre'ko piano jotzalle bizkor zan Martinez mutil gaztea bere egokitasuna erakusten asi zanean. Berak orduan jo zituan eresietatik gogoratzen naiz bata izan zala «Moraima», arabitarren abestien kutsua zekarrena. Bañan an arkitzen zan Kandida Ama bezelako Andoain'dar jakintzu bat Tolosa'ko apaiz nagusia bera eta onek gurdia bere bidean sartu zuen. Etxe berri aundi ura Tolosa'ko errian jaso zan eta bertan biziko ziran monjatxoen Ama ere andoaindarra zan, eta ona emen zer egin zuen Orkaiztegi jaunak.

"Gernika'ko Arbola", gure abesti aundiena egin zuen Iparragirre'k beste abesti asko zituen eta oetan batek "Glu, glu, glu" izena zuen, mutil gazteak alai arkitzen ziranean, jolasean bezela abesten zuten kanta polita. Nik aspalditik abesti au ezagutzen nuen, bañan ez zitzaidan burura etorri Orkaiztegi jaunak gureganatzeko egin zuen aldaketa eta berak aginduta guzien aurrean agertu zan nexka lirain ta gazte bat, bereala alaitasunez beterik kantatzen eta dantzatzen asi zana. Berak sortu zituen, noski abesti artarako, bai itz egokiak eta baita ere ibillera neurtuak biribilketa polit eta ederrak. Orrela neskatxo arrek, eta uste det Orkaiztegi beraren illoba zala, lenbiziko sarrera egin zuenerako txaloak asi ziran eta orrela bi eta iru bider gutxienez geiago guzien poza egiñaz, alaitasuna eta euskaltzaletasuna ekarri zigun. Gauz politagorik ezin besteak sortu zintzakean. Eta orrela euskal kutsua etxe berri oni eta jai eder arri asiera eman zion agertuaz bide ortatik etxe artako irakaste guziak ibilli bear zutela.

Bai etxe berri eder ori ikastetxe nagusi bat bezela eta Berrozpe'ko alabak sortu zuen Emakumelagundi bikain ura gure gaztediari gure bidea erakusteko, oñarri bezela antxen gelditzen zan. Jai ura pozez beteta bukatu zan, bañan urteak igaroaz gurdia bidetik atereaz ezin zezakean orrela jarraitu ortarako egiña ez zalako. Argatik urteak aurrera joanaz eta oker batzuek zuzenduaz, gaur, Jainkoari eskerrak etxe berri ura eta Lagundi ura guretzat euskal kabirik ederrena bezela agertzen zaigu. Gure Jainkoak bai abesti eta baita dantzak ere gureak diran bezela, garbiak eta txukunak pozez artzen ditu. Euskera gure izkuntza munduko zarrena jakintsuak diotenez, ezin zitekean etxe ontatik urrutira jaurti edo bota, ez, Kandida Ama bezelako bidetik ibilli bear degu eta ez zaigu damutuko bere gogoa orrela egiñaz.

Orain bertan beste gertaera bat gogora etortzen zait. Urte asko dala, Bordele'n (erderaz Burdeos'en) nintzala, ango Antzerti-etxe aundia (Le grand Theatre) beñere ez nuan entzundako opera bat, ematera zijoazten. Bere izena zan «Le jongleur de Notre Dame». Ona emen opera orren jatorria. Erriz-erri ibiltzen diran gizatalde batzuetan gazte bat ba omen zan gurasogabea talde artara etorri zana. Ez zekien ez idazten ez irakurtzen eta ezer ez, bañan Ama Birjiña'ren aldeko biotz berotasun bat sortu zitzaion eta eskatu zuen berakin joango zala. Bañan egun batean bere lagunak oean zeuden bitartean eliz bateko giltza artu, atea iriki eta gero barrendik giltzez atea itxi zuen. Mutil gizajoari ezin beste gauz oberik Ama Birjiña'ri eskeñiaz bere aldare aurrean jarri eta buruzberako irauliak eta biguntasun guzia bere soñari eskatuaz, antxen aritu zan bere lagunak jakin zuten arte eta esan zien berak ezin zuela besterik erakutsi Ama Birjiña'ri zekiena bakarrik, bere jaurti edo salto buruzbera ibiltzeak eta orrelakoak eta uste zula gure Amak pozik artuko zuela. Edesti au, istori au, ointzat artuaz Massenet edeslari edo musiko bikañak opera oso bat eta oso ederra bera egin zuen eta geroztik alde guzietara opera ori zabaldu da.

Guk ere beste ainbeste egin bear genduke gure abestiak, gure dantza ederrak goiko Jaunari eskeñi, berak euskaldun egin ginduelako eta Euskalerria ere berak sortua dalako eta beti irautea nai duelako.

Beste gogorapen bat ere burura etortzen zait gaztearoko egunetan gertatua. Etxe ontan bertan etorria zan neska gazte bat, bera ere lekaime edo monjatxo egiteko asmotan. Emengo buru nagusi zanak deitu zidan ea nerekin eamango nuen gazte ura Salamanca'n Lagundikoak zuten monjagai berri au sartzeko. Bañan urte artako egun aetan otz aundia etorri zan eta nere gurasoak obe bearrez ibialdu nai ninduten artsaldeko expres-trenean, laburrago eta beroago joango nintzalako. Orduan Tolosa'ko etxe ontara etorri nintzan eta nere gurasoen asmoa erakutsi niotenean ontzat artuaz erantzun zidaten neska ori neronek Salamanca'n zuten monjagai-etxera eramatea. Bañan ni Madrid'a nijoan eta nere lagun bat, Anbrosio Zatarain Salamanca'ra zijoan eta oni eskatu nion Medina del Kanpo izena zuen erriko gelditokian itxoegiteko berak andik Salamanca'ra laguntzeko. Eta orrelaxen egin zan. Bañan Medina'ra iritxi bitartean gure artean edeslari talde bat sortu genduen, iru lagunak plauta joaz eta beste biek gitarra joaz. Orrelaxe egin zan bada neska gozo arren sarrera zuek dezuten monjagai-etxean, Salamanca'ko errian. Geroztik ez nuen beñere jakin bere berri, ez dakit bizi ote, dan ere. Ni urte aetan Salamanca'ra nere azterketak (examiñak) egitera joaten nintzan, bañan lenbizi Kandida Ama ikustera (Zamora kaleko etxean) eta berarekin izketa luze batzuek egitera. Bere itzetan bere gogo garbia eta bere asmo aundia agertzen zalako. Bai, nere ustez an goian arkitzen da burruka ta gorrotorik ez dan tokian eta bere biziera beti gogoan izan dezagun berak irabazi zuen Zeruko tokian guziok arkitu gaitezen.

LOPEZ-MENDIZABAL'DAR IXAKA

ATEOKERIA GARBILARI?

Fide, siñesmenaren larri-aldi edo krisisa agiri da gaur egunotan. Nork ukatu? Ori egi-egia da, baiña sarri askotan, siñesgabekeri au Jaungoiko-ordeari, Bere sasi-irudiari dagokio. Ta ortik, izagai kaltegarri bestelakoak garbitzeko etorkizun indarra be izan leiteke. Gogo-kinkail utsak diranak eta ainbestean emoten dauskuezan irudikeri, ameskeriak.

Antxinako kristauak, ez ziran Olinpo'ko sasi-jainkoetan siñestedun. Augaitik jainkogabe zirala salatzen ebezan. Guzurrezko jainkoak gurtu ta jauretsi egiezala aginduten eutsenean, ez eben kristiñauak arein esanik beteten, sasi-jainkokerizko obenean ez jausteko.

K. Rahner'ek diño: «Egitez, gaurko gizona munduan gaiñerengo izakia dala, bertako krisketea dala, Jainkoaren aurrean da bakarrik jainkogabea». Egiazko Jainkoa ezagun-arazo, erakutsi ta zabalduteko, jainkordea, jainko-izuna amilkatu bear dogu. Zeregin onek, agirian, kristiñau asko obenerako gaizpidean ipinten dauz. Zeozer amiltzeak, lan eta arazo gogor eta zaillak dakars, baiña bearrezkoak eta garbitzailleak. Jainko guzurrezkoen amilketan eta ondapenean, Idazteunaren eragingai «leivmotiv»a dago beti.

Gaurko ateokeria, oiñazez beteriko «Katarsis», elorri-ar izango da aurki, kristau garbiketarako bearrezkoa. Geure irudi ta antzekoa dan jainkoren bat egin dogula irakasten dausku, bear ba'da. Jainko gabekeria kalte aundia izan arren, fedearen garbikuntzea onbideratu legike.

Ateokeria, gizonen biotzetan, Jauna'ren eriotzea da, baiña illa jainko guzurrezkoa ba'da, ez ete da erosle edo bir-erosle egite eder bat? Argitsuago ta dizdiratsuago berbiztuteko, Jainkoa ilten da. Sorgin-jainkoen ostean, Tabor'eko aintzaz, doatsu ta diztikor eraldaturik, Jaungoikoaren berbizkundea dator.

Jaungoiko egiazkoaren arpegian, kondairea zear ipiñi dautsen sorgin-izagaia, jakintsuentzat eta gizon zintzoenentzat eragozpena zan. Beraz, Ibor'en eretxiz, «gaurko gogamen munduarra, guzurrak eta sorginkeriak apurtu ta ezereztuteko ez da txarto etorri».

Batikano bigarrenaren zeregin, eginkizun eta ardura garrantzitsuenetarikoa, Jainkoari ta Bere Eleizeari egiazko arpegia biurtzea izan da. Ez, aurrerantzean, gizonen burualdi, utsegite ta makurkerien zulo-estalki, Jainkoa ezin izan leiteke. Ezta bizi onetako kezka, neke, kalte ta ardurabideen oro-sendagai be. Orain arte, mendeak zear, zenbat eta zenbat urreratu ete dira Jaungoikoarengana laguntzaren bat bakarrik lortu edo jadetsiteko, Ta onegaitik Jaunagaz itundu; bederatziurrenak egiten, edo laurleko batzuk abindu, edo, danak ikusi egien, santutegi agurgarriren baterantz ortozik ibiltea ta narraz belaunikoz eldutea be bai; naita ez beti.

Eskatu dabenak, baiña, ez ba'dabe lortu eurena, siñesmena galdu; edo, obeto esatearren, iñoiz ez ebela izan konturatu. Eta ori errelijioa ete-da? Ala zoramen, sorginkeria? Zoramena da aurki, gogo-utsezko otoitzak baiño aozkoak gurago izatea; zoramena da, goimaitasuna baiño eskupeko ugitxoa emotea;egiazko —ez aozkoa bakarrik— dan goimatasuna baiño zuzentasun otza; gizartea otoitz giro baten eraldu ta biurtzea baiño eskari-otoitz esakerak gurago izatea zoramena da.

Jainkoaren irudi guzur, oker ta atzipetua kristiñau askok daukagula, aspalditik dakie siñesgabeak. Erru ori arpegira bota dauskue, ta guk, txar, gaizto ta deunge deitu dautsegu, gogartean jarri bearrean. Beti jakin bear dogu, egiazko Jainko siñesgarria, kristauen Jainko benetakoa, gogo ta biotz onezko eskabide guztien erantzulea dala, baiña erantzun jatorrez, egiazkoz ta augaitik ez erraza. Gogoratu daigun Kristo'ren esana: «Nire atzetik etorri gura dauanak, ukatu bei bere burua».

Jainko-irudi erraza ta gizonaren burualdien otseiña billatzen doazanei, argi ta garbito esan bear yake: «Jainko zaleak zareela uste dozue, baiña konturatu zaiteze jainko-aizun gurtzailleak zareela». Norbera izadiko muiña dalakoan, eta Jainkoa erabiltean, beti norberaren asmakizun eta atsekabeak erabagiteko ba'da, jainko-aizunkeria aurkitzen da. Orrelango kristiñauak, gitxi gora-bera auxe esaten dabe: «Nik, Jauna, nire eraspena emoten dautsut, baiña Zuk, ordez, zaindu ta gorde bear daustazuz nire osasuna, nire ondasunak, nire omen, izen-on eta, gero, nire zerua, betiko zoriona». Onela, kristiñau askoren jardun-eraspenak ez dira izan norbereken moltzo onuratu ta goretsiak baiño.

Oraingo ta etorkizuneko kristauak, siñesmen obea izan bearko dabe, sendoagoa, oiñarritsuagoa. Gauza guztiei egiazko Jainkoaren zentzumena emongo dautse, fedeagaz.

Batez be, gaurko ta etorkizuneko erlijiodun Jainkozale gizonak bere urko lagun bakotxean anai bat ikusiko dau; egiazko Jaungoikoaren irudian, danen Aita Ona ezagutu.

LETONA

GIZARTEKO ARAZOA

Azkenengo guda ondorendik, gaurarte, indarkeriaren zapaldian dauden errietan, gazteak bereziki, abertzaleak dirala esaten dute, ta bat-batean, marxista-leniñistak. Bi buruera auek, nolaz alkartu?

Sozialismoa geiegi aipatu dutelako, ez al da zenbait biotzetan abertzaletasuna auldu? Begiratu batean bi burutasun auek, alkartu litezkela ematen du. Baiña, zapaldutako erri bat zatitzeko ere, olako tresnarik eta asmagarririk ez da.

Bi pentsamentu auek, ez bait dira bide batetik joango. Kondairak bi burupapen auen jokabidea, argi ta garbi agertzen digu. Irlanda, Polinoa, e. a. Abertzaleen lendabiziko oinkadak, aberria askatzea danez, bere urratsak azkatasun bidera zuzenduak izango dirala, zalantzarik ez daukagu.

Beraz, auek ez dute gizarte arazoa, abertzaletasunen aurretik jartzen eta ezartzen. Ziur bait daude, azkatasuna iritxi ezkero, sozialismo arazoa zuzenduko dala, ta oztopoak izan arren, danak garaituko dirala. Esate baterako, aberri zapaldu oien arazoa, ez da gaurkoa, antziñatik datorkiena, ta nere ustez gaur-eguneko arazo-nagusiena.

Irlanda e. a. aberri auetan, sozialarazoak garrantzi aundia dauka, baiña, zer esanik ez, gizarteari buruzko aldakuntzak ezagunak ditugula, beti berdiñak ez dira izaten. Iñoiz garratzak, eta urrengo ongi eratuak. Aberri ortakoak zuzendu bear dituan arazoak dira. Baiña, ortarako erriak iraun bear! Erria, izatea galduta ere, erri aurreratua izan, baiña, aberri bezela, iñola ere ez!

Marxistak danan gaiñetik ludi guziko «proletarioaren» azkatasuna nai du. Ta abertzaleak, alderantzi, aberriaren azkatasuna irrikarzen du. Beraz, bi jomuga ez-berdiñak diranez, bi elburu nabari dira. Baiña, argi ta garbi dakiguna, au da: erri oietako abertzalea, berak uste ez duala, sozialismoari itsatsia dagola.

Gaurko kritikak aunitz, eta esan bearrik ez dago, zenbait lagun-arteko solasak, sozialismoa dala-ta, lagun-urkoa oso-erraz epaitzen dugula, Jesus'ek esana, gogoan izan bear genduke: «Ire lagunurkoaren begian lastoa ikusten duko, eta norberaren begietan, askotaz oztopo aundiagoa eduki arren, ez dugu ikusten. Azkatasuna iristeko burrukan ari dan zenbait erri, bere kondaira, erlijioa, sikolojia, izkuntza e. a. itz batean: berezitasun auek dituan erriak, azkatasuna iristeko aleginduko da. Erri onek, laterriaren sozialismo osoa onartuko al du? Sozialismo era au, erru gabea izango al da?

Iñoiz sozialismoaren bearra izango ba'gendu, azkatasuna ta demokraziari itsatsia, osokeriaren aurkakoa, ta dirualdeari begiratuaz berpizgarri jatorra izango dan sozialismo nai dugu. Gure errian, demokrazia ta gizartearen azkatasuna, onartzen ez duan sozialismoaren aurka, altxako giñakenak, arrunt eta aunitz izango giñake.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

AGVR

III URTEA
43 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - BAGILLA - 17

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

LATERRI - ARTEA

Iñork esana da laterria Jainkoa dala. Au ez dogu siñisten, jakiña. Baiña gaur agertzen jakuzan laterri ia alguztidunak ikusirik, Ariman'en antzeko jainko gaiztoak ete diran zalantzan izten gaitue. Eurak egiten dabez legeak, eurak batzen dabez aberastasunak, eurak menperatzen dabez aberriak... Eta euren arrokeriaz aseturik, besteri kalterik egingo ez ba'leuskioe! Baiña, zori txarrez, eurak zabaltzen dabe ludian gosea, eurak billoztuten dabe jantzita dagoana, eurak ikaratzen dabe bakez bizi gura dauana.

Gizonen artean, banaka, ba dira txiroak eta aberatsak. Ezbardintasun au nabarmen agertzen da. Baiña laterrien artean dan ezbardintasuna askoz nabarmenagoa da.

Gizonak bakea gura dau. Nork ez? Eta laterriak be bakea nai dabe. Zeiñek ez? Eta bake ori mundura ez da agertzen. Guda bako urteak gitxi izaten dira. Banango gizonen artean goraberak eta burrukak sortzen diran antzera, laterriartean be uskeri batzukaitik sortzen dira gudak.

* * *

Gerora begira, laterriarteko gizarteratze bat bearrezkoa dala uste dogu. Banango gizonen artean ondasunen gizarteratzea bear dan lez, antzera laterriartean be. Gizon guztiak anaiak izanik batzuk gosez eta beste batzuk asetuta edo bear daben baiño geiago dabela ikustea lotsagarri agertzen jaku.

Baiña laterri aberatsak eta txiroak, gogoratzen ba'doguz, egoera ori lotsagarriago da.

Nondik ete dator laterrien aberats edo txiro izate ori? Lurpeko aberastasunakaitik, aurrerabidean izan daben zurtasunagaitik, erritarrak langilleagoak diralako, biztanleak gitxiago diralako, lurra bera emoilleagoa dalako...

Dana dala aberastasunen iturri ori, laterri aberatsak txiroai begiratu bearreko dagoz. Ba dira orretarako laterri artean laguntza-bideak, eta bide orreik artzen ez ba'dira, munduan geroago ta gorroto geiago ta iraultza geiago izango da. Laterri-arteko egitura oneik ondasunak gizarteratzeko aldunak izaten ez ba'dira, ez dira munduko zori txarrak gitxituko, ugairu bai.

* * *

Laterri-artean izan ledikezan ezdabaidak be argitasuna ta epaibidea bear dabez. Gaur guztiontzat bildurgarri doguzan gudak kentzea nai ba'dogu, laterri arteko epaibidea bear dogu: lege bereziak eta zuzenak; epaikari argiak eta gogotsuak, laterrietako agintarien artean bake-zaletasuna ta epaikari orreik onartzea...

Ori izan ledike gudak kentzeko era bat, baiña gaur arte ezin lortu izan da. Amalaugarren urteko guda ostean egin zan laterri arteko alkartea, baiña bere indarrak ez ziran naikoa. Azkenengo guda-ostean, San Francisko'ko batzarretan egin zan ONU, baiña ikusten dogunez, ia eguneroko gudak kentzeko ez da naikoa. Oindiño be itxaron egin bear. Noiz etorriko ete da laterriarteko epaitegi zuzen ori?


* * *

Laterri-artean agintaritza bakar bat be bearrezkoa da. Orretarako bide bat izango ete da gaurko ONU au?

Baiña agintaritza au laterrien artean egiten ba'da, ludian zapalduak izan diran erriak betiko zapalduak geratuko dira. Gogoratu daigun, esaterako, Biafra Nigeriak basatien legez azpiratu ebana. Eta orrelan itxiko leuke eta egoera ori onartuko leuke laterri-arteko agintaritza orrek Ala zuzentasunez gauzak egin, Erri bakotxari berea emonaz?

Gizona batasunera doa. Au ezin ukatu. Baiña batasun ori bakotxaren berezitasunak galdu barik egin bear: «Síntesis» egin orduko, «tesis» eta «antitesis» izan bear eta bien alderdi onak batu. Jakintza ta aberri guztiok batasun orretara geuretasuna eroan bearko dogu.

AGVR



LEIRE: Sorkaldean zaindari

Oporraldian ezagutu zure erria!

IGESIK BILLA

Izen gogor ta ezain biurtzen ari ete da Jaungoiko izen maitagarri au? Itz au berez, sortzaille, egille ta gaizkatzaille da. Ta itz onegaz naskatuten doala lurrean gizona dirudi. Ala gizonak beretzat artu nai ditu Jaungoikoari, bakarrik, dagokiozan altasunak?

Ezpai onetan nabillelarik, lurreko gizon trebeak datorkidaz burura. Gizon argia, gizon aundia da; gizon sortzaillea, gizon arrigarria; ta gizon on-egillea, au guztien gain, gizon maitagarria.

Margolari nai taillagilleak, une baten, gogoratu daiguzan. Era bi onetako lagunak almen ederrak ditue euren barruan, duban, arturik. Eurak ez ditue sortu barruan asmetan dituen almen eder orrek. Lagun onein ondo-merezia, euren izatez batera artu dituen almenak, ondo erabiltea da. Au egikeran, gizontasun legea betetu, erriari aurrerapidea ta bizia emoten dautse.

Ori dala-ta, gizonak ez dauka arrokerirako ziorik. Guztiok, berez, zor doguna da, geure almenak zuzen erabiltea, aurrean dogun erriaren onerako. Au, olan ez egitera, ni lapurra izan nindeke, ta izen gaizto ori lapurrak berak be ez dau entzun nai.

Artistea, ertilaria, begira dago bere ingurura, mendira, zelaira, itxasora, gizonen egite ta bear-izanetara ta baita gizonen pentsabide ta jokeretara. Berak egin bear daben ertizko bearraren oiñarriak, batzuk beregan ditu ta bestetzuek izadian, begien aurrean. Beste batzuetan, lurrean eta gizadian jazoten diran egiñetatik argitasuna artzen dau. Ertilariak, berak, almen batzuk beregan ta gai batzuk aurrean artu dituala, argi ikusten dau. Erlearen antzeko da: eztilaria.

Iñok, iñoz, ez dogu esan, erlea dala loreen sortzaillea? Erlea loretara doa ezti-gai billa, ta gero, bere jakituriz ta lan egitez, ezti biurtuko dau gizadiaren onerako. Baiña beste ertilari nausia, aurretik ebillen lanean, erleari berari bizia emon ta loreen likiak ezti biurtzen irakasten.

Gizonak ba-diardu lanean bere almen bikaiñekaz ta ertilariak ertizko lanetan. Gaur arte, iñork ez dau esan, gizonak ba-dakiala bizitzea jakituriz sortzen; edota len sorturiko bizitzari, betiraunean eusten. Orain artekoak guztiak joan ziran, dei ixil bateri erantzunez, burua makurturik. Aurrerantzean be, antza dagonez, bide bardiña daroagu. Naita lurtar guztiok, ao batez, emen geu gara nagusi esan, egiteak agertzen dabenez, beste ikusten ez dogun ori da bizitzaren Jaun ta Jabe, ta indartsu gaiñera.

Emen, ez dago alabearrik, ta itsu-itsuan gauzak egiterik. Jakintzak irakasten dauskunez, gauza ta egite guztiak euren jakiturizko zioa dabe. Ta gizonak azaldu ezin ba'dau bizitzaren izatea, beronen sustraitik artuta, ba-da biziaren misterio-eskutua, indarra ta jakituria beregan dituana. Nor da? Biziaren bidea, biziaren egia ta biziaren bizia, berez dituana.

Ta orixe berbera da gu azkatuko gaituana. Egia da, gora adi, noz edo nundik etorriko dan begira egonda, emengo arazoak ez dira konponduko. Ori, olan dala uste izatea, umekeri petrala besterik ez da. Izadi ta gizadiaren Sorleak gizadiaren ardurapean itzi eban izadiaren izatea, ta orretan biziko zan gizona, gizonari on egiten ta lurra edertzen. Geuk nai doguna da au, ta arturiko eginbearra orixe besterik ez da.

Geure senean daroaguz lur au eralduteko bear doguzan adimen, indar ta maitasuna. Ta almen orren bidez egin bear dogunaren erantzupena asmetan dogu. Ori be artu egiten dogu ta ez sortu. Egillea gu egiten dago ta guk lurreko bizitza osotu bear dogu. Egilleak eta guk egiñok, lur au azkatu ta gaizkatu bear dogu.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Eskerrik asko!

Etxe barruko zapiak, loiak naiz garbiak, auzoko edo kanpotarren begien aurrera ateratzeak, euskaltzale asko kezkatzen ditu, ez arrazoi barik, baiña ez beti bardin. Guk edo gure lagunak olakorik iñoiz egin ba' dogu... entzun doguz entzutekoak! Orain, baiña, Euskaltzaindiaren «Prensa bulego»ko agiria zabaltzen dabenak izango ziran pekatari... ipiñiko ete-dautsee «penitentzi» bardiñik? Or konpon!

Gauza bat dago emen, niretzat, argi ta garbi: Nere izena erderazko aldizkarietan, «La Voz de España» ta «La Gaceta del Norte»n gitxienez, erdi-ipurdiko barrien bidez, zalantzan jarri da. Zer jazo dan ez dakianak, barrabaskeri aundiren bat egin etedodan edo... pentsatuko du: ba, ez olakorik.

Dana dala, nere izena erdeldunen artean edozelan aizetze itsusi orrek, neuri bere, bardin erantzuteko eskubide osoa damost. Beraz, lenengo nere txokotxu onetatik eta geroago, bear ba'da, erderazko aldizkariren batetik, lasai erantzuteko ta argi piztutzeko asmotan nabil... ez bedi gero iñor arritu edo gora-goraka jarri, alperrik izango da-ta.

Eta ez dot siñestuten «Prensa bulego»koen agiriak diñoana: San Martin jaunak, nere aurkako «boto de censura» dalako ori ez eban bere borondatez kendu, batzarrekoen giroa ikusita baiño; euskaltzaiñen iritzia jakin ondoren baiño. Au da: ez dala «boto» ori aurrera eroateko arrazoirik izan. Zer dala-ta eskatu ete zan?

Berak jakingo du, baiña, bear ba'da, norberaren asmoa beti aurrera eroatearren oitura txarrak ekarten ditu... ta jakiña, iñork arpegi emon ezkero burua galtzea da. Baiña, alperrik! Iñoiz enplastero deitua izan arren, «aurkako botorik» eskatu ez neutsan jaun ori, ez da nitzat, ez iñor, ez ezer!

Ta, irakurleen aurrean nere izenak zalantzan jarraitu ez dagian, one emen gure ezta-baida edo sasi-auziaren muiña: Dakizuenez, Arantzazu'n euskaltzain batzuk eta idazle batzuk alkarturik, ezta-baida luzeen ondoren, ortografiazko arau batzuk onartu zituen: «begi onez ikusiko zirala» esanaz. Gero, baiña, «begi on ori» derrigorrezko «ukabilla» izatera biruta nai da, ta euskaltzain askoren (zenbaten, ez dakigu) iritzien aurka, zoritxarreko h'ak eta abar eta abar sartu arazotea Euskaltzaindiaren bizkar gaiñeko lana bezela artu da.

Orrez gaiñera, Eibar'en, orain urte bi luze egindako batzar baten: iñor aurka azalduko ba'litz, makillatzea erabaki zan, «Eibar'ko zina» famatua izenpeturik. Ziñatzailleen artean San Martin jauna egoan, eta makillatzeko gai ziranen artean nere izena ipiñi eben. Ez bedi ba arritu gure irakurlea, nere izena, gora-ta-bera, edonun ikustean.

Dana dala, auzi onetan gure ekin-oiñarria argi dago: Gure ustez, Euskaltzaindia, bere iritzia emon ondoren, iritzi batera ba'dator beintzat, neutral izan bear leuke, ez dauka beste eskubiderik-eta. Baiña, ez da ori jazotzen. «Batu»aren izenean dabiltzanak, Euskaltzaindiaren babesean dabiltzala adiezoz, jo ta ke diardue, an eta emen, nai ta nai ez, zoritxarreko h'ok sartzen. Ta ori da guk onartzen ez doguna ta salatzen doguna.

Txarrena, orretzaz gaiñera, iñoiz baiño «anarki» aundiagoa sortu da idazkera aldetik. Iru edo lau «batu» be egin dira, talde bakoitzak berea. Ta or daukazuz, irakurle, «batutzat» eskeintzen diran mordoillokeri nabarmenak: Erdi gazteleraz, erdi prantzesez, eurok esaten dakienez esanda: «Oestetik asi ta Lesteraino» ez da gaur aiñako «euskera» lotsagarririk iñoiz egin! Gure iritziz, jokabide orren asmo biurra euskerea erailtzea da, ta norbaitek, bere eskuan guk baiño indar geiago dauan norbaitek, atzetik bultzatzen dauan jokabide zikiña gaiñera.

Gu, euskerearen alde gagoz, euskera biziaren alde, ta orregaitik, konponketetan barik, gudan jarraitzea erabaki dogu, naiz ta gure izena, bein baiño geiagotan, iraundua ikusi. Eta, Jaungoikoak lagun, onela jarraituko dogu. Urrengoan, apurka-apurka, emongo doguz zertzelada luzeagoak, egia jakiteko eskubidea du irakurleak-eta.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

LOIOLA'KO IKASTAROAK

Dagonilla'ren 2'gnetik 12'gnera

IV IKASTAROA ANDEREIÑOENTZAT

1.—Aurreko iru urteetan bezela, aurtengo udan ere izango da ikastaroa andereiñoentzat.
2.—Igaz bezela, ikastaroak eta ostatuak Loiola'n izango dira.
3.—Aste batean, katalandar irakasleak ariko dira, ta bestean, euskaldunak.
4.—Ikastaro au egin nai duten andereiñoak EDILI'n —Donosti'n, Gataria 21' gnean— eman bear dute izena. Urrutizkiña, 41-32-82.
5.—Aurreko urteetan ikastaroren bat egiña duten andereiño guztiai idatziko zaie, aurtengoaren berri amanaz. Gaiñerako andereiñoak zuzendu bitez EDILI'ra, xeetasunen billa.

BATZORDEAK

* * *

Orain arte, jaso dogun agiria; gure aldetik gauza gitxi ezarriko dautsagu, ta batez be, ikastaro au ezagutzen ez dabenen onerako: Ez da or erakusketan erabiltzen diran gai ugarietatik eguneroko ikasketan lortu daikezunik sakontzen, or gauza bi ikasiko dozuz, zeuk ikasten eta besteeri nola erakutsi edo irakatsi errez eta obeto, ta batez bere, nola aurrei atsegin jaken aldetik eziketa barria sartu ta ikastera zaletu. Gaur eguneko «pedagoji» jakintza aurreratuenak erabilten dira, ta, ala ta be, errez ikastekoak, ta laguntza berezia emongo dautsuenak, zure ikasleen artean aurkitzen zaranean datorren udazkenean.

Joan eta galdetu lenago izan diranei, orreik esan al izango dautsue zelako aurrepena lortu daben Loiola'n ikasitakoei eskerrak. Ta, zetan esan, an ez da naspilketarik onartzen!

UBITZA

EUSKAL LEIAKETEA

Eibar'en, aurren jai ederra izan eta astebetera, bigarren ekiñaldi polita izan dogu, ta obeto esateko, au Arrate'n. Zazpi urtetik amalau urtera arteko neska-mutikoen (sail bitan) norgeiagoa euskeraz nok obeto irakurri ta idatzi.

An ederretsi al izan gendun ume koskor orrein jakituria; ikusi KEZKA taldekoen trebetasuna; entzun, ia eten barik, orrein txistulariak; gozatu, Narbaitza ta bere lagunaren bertso zorrotzak, eta agurtu biotz euskarri diran antxiñako eundaka makildantzari zindoak, gitxi abestu euskuen, baiña abestu ebena ezin obeto ta biotzera zuzen joaten dan orreitakoa.

Goiz guztia bear izan zan leiaketea osotzeko, ta berandu arte ezin izan gendun jakin, ain izan zan ba bardintsua burrukea, zer nola geratu ziran. Erabaki bat artu bear, eta, batez be amaika urtetik amalaukoenean, lenengo saria ta bigarrena bat egin eta dana



lenengo sari lez biren artean banandu bear izan zan. Biak lortu eben, ba, zenbaketa bardiña. Batak ipuiña idazten obeto ekian, besteak aditza zoragarri erabillen. Sari biok batuta be, ba-zan aldea: txirringa bat besterik ez ta emen bietatik batak, bere osabea gogoratzen euskula, berak ba-ebala txinrringa bat berea etxean eta bestearentzat itzi eban. Pedro Agirre, mutikoaren izena, ta «pozik jakin juen ire eskeintza ire zarren lagunak».

Ona, ba, sail bietako zerzeladak:

a) Taldea, 11-14 urtekoak:

1.—Mutil gazte bi: Pedro Agirre ta Patxi Xabier Baztarrika. Donostikoa a, ta Ataun'goa au.

3.—Odile Kruzeta, Eibartarra.

4.—Idoya Agirre, ta onen ondoren erreskadan: Elisabet Ugarteburu, Jorge Kruzeta, Jabier Idarraga (Ikusi AGUR 41'gn zenbakia), Jone Miren Garcia, Itziar Arrieta, Margarita Castillejo ta Francisco Xabier Zabaleta.

b) Taldea, 7-10 urtekoak:

1.—Lourdes Urzelai, amar urtekoa.

2.—Xabier Basauri, amar urtekoa.

3.—M. Lourdes Peñalva, amar urtekoa.

4.—Iñaki Basauri, zortzi urtekoa, ta onen ondoren, Agurtzane Garcia (9), Elisabet Kruzeta (9), Agurtzane Azpiazu (9), Asier Ugarteburu (9), Dorleta Arkauz (8), José M. Isusti (8), Jon Iriondo, ta ezin danat jarri, ogetamazortzirarte, ta danak izan eben euren saria. Tamalez, izan zan bigarren talde onetan betiko keriak sortzen dakien naigabea be, ta guraso batzuk alde egin eben; epai-maikoak euren jokerakoak ez ziranei, arkatz zorrotzagoa ezarri eutsen. Ez olan lenengo taldeko epailariak, baterako nai besterako idazkerea izan, lana lanez eta ez izkiz aztertzen eben, orretarako an ziran Azpeitia'tar Julene idazle ezaguna ta Retolaza'tar Jose Antonio jauna.

Ta azkenez, eskerrak benetan Idoiaga'tar Arantza zortzi urteko neskato politari, sari bat be irabazi eban, eta berak esanda jakin al izan gendun zein zein ume zan.

IBUR

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendati ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

«EUSKALDUNAK» POEMA ETA OLERKI GUZIAK

Onela deritza «Auñamendia Argitaldari» etxeak «Nazio-arteko Liburu urtea» dala-ta eskeñi digun Liburu bikain ederrak. Begiak itxi nai dituztenak ere ikus dezaten Nikolas Ormaetxea «Orixe» iñoiz izan dugun olerkaririk nagusientako bat dugula. Alako olerkariari onelako liburua: idazti mardul, jori apaiña, 700 orrialdetik gora dauzkana. Egillearen argazki bat. A. Valverde «Ayalde» zanak egindakoa 15 edergarri artitsu; eta ainbat eta ainbat musika-zati kanta-gai diranak Lengo itzaurreaz gaiñera Goikoetxea I. jaunak beste berri bat ipiñi dio. Eta azkenik Aita J. M. Mokoroa'k aspaldi idatzi zuan azalpen-kritika sakona datorkigu urre-giltzaz Liburua amaitzera.

Liburu eder onek beste berezitasun bat du. Alegia, «Nazio-arteko liburu urtea» dan ezkero ta erdel irakurleok euskaldungoaren mamia txasta dezaten olerki guziak euskeraz ezik erderaz ere itzuliak datozala. Itzulpena izki txikiagoetan. Poema'ren erdal itzulpena Orixe berak egiña; eta gañerantzekoak I. Goikoetxea'k erderatuak. Latiñezkoak aldatu gabe bere jatortasunean datoz. Aipatzen ari geran Idazti paregabea iru izkuntzetan bururaturik dago. Onela munduaren aurrean garbi ager dedin Orixe zer nolako olerkari aundi izan zen.

Zoritxarrez gure artean bai bait-ditugu aren olermenaren indarra ukatu lutekenak. «Euskaldunak» poema «Txina bezin urruti egiten zaigula» norbaitek esan du. Jakiña, ori diona, teloji ta filosofiz anpaturik dago naski; baiñan ez du bere erririk ezagutu. Ez du ikusi jende xea ez lanean ez nekepean eta ez jolas eta jai egunetan... Ez daki nekazariaren berri, ez nolako ispiritua duan, Masiatzaille ori bere bait dago erdel izatez kutsuturik «Euskaldunak» poemari buruz erantzun eta, iritzi zuzenagoa eman dute: Lizardi, Mitxelena biak (Koldo eta Salbatore'k) Alustiza, Leizaola, Amezaga, Onaindia, Lekuona, Villasante, Zaitegi, eta beste anitzek...

Onoko idazle kaskar onek gai ortaz «elogio razonado de 'Euskaldunak'» idaz-lanean zerbait azaldurik dauka (Gran Enciclopedia Vasca-Bilbao-1967).

Baiñan entzungorrok ez dute bere otsa besterik entzun eta aditu nai. Virgilio urrutiagoa dago: eta Mistral ere ez da gaurkoa, baiñan gurea ezetsi ta arrotza aundiesteak beti eman oi dio irizleari jakintsu itxura. Areago ua «gorrixka» baldin ba'da «Orixe» gizaldi ontako olerkari gallenen artean ez aitortzea, zentzugabekeri utsa da. Kritikan bat baño geiago gaitzirizko ortan eroriak ditugu. «Euskaldunak Poema ta Olerki Guziak» arrigarrizko Liburu aberatsa, guk, euskal Literaturak azaldu dun pitxi dizdirokorrena bezela arturik daukagu.

«Barne-Muñetan» olerki-mistikoen gorenmenaz esan-ditekena Aita J. M. Estefania'k idatzirik utzi zigun: Oberen arteko lana: Poesia jatorra, gain-gañekoa, benetan gogokoia, oro dendu, gartxu, osasun eta kristau eta antze arauz...

Euskal poesiak bide berriak, berriak baño berriagoak billa bear dituala?... Bai naski: teknikaren mundua asitzen doala ta poetan dagokiola zarra ta berria, biak anaitzea?... Baita ere!

Ain zuzen Orixe'ren azken olerkia (1961) «Beti Dantza» Pioner V'garrenari opaldu zion. Onek adieratzen digu oean eri egonagatik adimenez, eta olermenez argi ta ernai zegoala. Eta berrizale askok egingo ez luteken opaldia ondu zuan:

«Zimisten ziztuan ba doa Pioner mundu berri billa.
Artean emen ni, oiari josirik
(neregan bil-billa».

Irakurle: Eskura zazu lenbaitlen «Euskaldunak Poema eta Olerki Guziak»; eta ba dukezu euskal jakirik aski eta gogo-azkurrik ase betzan bizitza guzirako.

ANTONIO M.ª LABAYEN

ULER - GATXA

Irakurle, ondo dakizun lez «uler-gatxa»k «ezin ulertu» adierazo nai dau. Eta izan ere, AGUR aldizkingi onetan, noizean-bein, atal bat agertuten da idazpuru dalarik. EUSKAL HIT PARADE. Bear ba'da, irakurle, ni baiño argi ta jakitunagoak, idazpuru orrek zer nai daben esan, ondo ulertuko dabe, baiña niretzako benetan «uler-gatxa» da eta egiz, buru-austea damost; batez ere, h dala-ta. Aspaldion, iñongo etxeko tailletora arrika gogorrean gabiltz, eta h —oraingo geixo ustelkor ori AGUR aldizkingi onetan ikusirik— bene-benetan bai dala ziñestu-eziña.

Orrez ganera, HIT PARADE onek zer nai dau esan? Ni euskalduna naz, eta ez dulertaz itz orreik, eta jakin-egarri biziz, Euskal Iztegiak arakatu dodaz eta ezin billatu. Ikusten danez gure Euskal idazlari andiak, gure Iztegiak idatzi dabezan gizon ospatsuak, aldi aretan ez ebezan itz orreik billatu errian, eta ez ebezan eurekandu; gaur egunean, bear ba'da, biziko ba'litzaz zerbait aitatuko leukee, onerako edo txarrerako, baiña gaurko euskaldun askorentzako itz orreik «uler-gatxak» dira, gure artean ez-ezagunak, ez darabilguzanak.

Eta Euskal Iztegiak laga-ta, neure artean, neure burutasunetan ba-diñardut, itz bata eta bestea oldoztu eziñik, eta sakondu nairik neure asmo makalakaz, HIT itzari azkenengo z bear dabela osotuteko, eta orrelan, Auñamendi osteko euskaldunak, pantzerazko idazkereak ezarririk, aurrezkitzat h bat imiñi dautse ta ortik «hitz» itza sortuerazo dabelakoan, aiko-maikoetako gora-berak direala esan geinke.

«Parade» edo «parada» itza, gure baserritarrak idisko ta zekorrak dagozan tokian esaten dautse, esakun itxusia benetan.

Morapillo au askatu nairik, englandtar Iztegia eskuratu bear izan dot, eta emen, ostera, «hit» itza billatuaz, irakurten da adierazoten dabela: «emon, jo, joketa, igarri, ekin, argitasun edo ezaugarri, argi-billa, aurkeztu».

Eta «parade» itza ere, Iztegi onetan aurkituten da, ta diño dala: «ospetsu, erakusle, anditasun, gudalari-ikuste», erdeldunak, «parada militar» asaten daben lez.

Dakustanez, EUSKAL HIT PARADE eralduteko England mintzaerara jo dabe, ta olantxe, AGUR aldizkingi ta beste batzuetan ere dakusgu.

Baiña gure euskerea ain makala ete da «esakun ori» ezin euskeralduteko? ala, «esakun ori» euskeraz ezin ete geinke adierazo? Eta EUSKAL HIT PARADE agertuten dan ingietan, idazpuruaren jarrayan irakurten dogun gayak, geyenetan, eresi barrien jakingarriak azalduten dabez, ta orrelan izan ezkero, idazpuru ori ezin ete geinke idatzi onetara, adi-bidez: «Euskal Eresi-barri Txorta» edo «Euskal Abesti-barrien Erakusketa» edo orrelako antzekoren bat?

Euskalerrian ainbat aldizkingi ta izpanrringi agertuten dira, eurotan bai idazki ospetsu ta jakitunak idazten dabe, ta, zergaitik euroi ez dautsegu laguntasuna eskatuten idazpuru ori egokiro euskeralduteko?

Euskera, arren aurrerantzean, alegiñez, ez dagigun euskal ingietan orrelako idazpururik, HIT PARADE izen itxusi ta nastekorrarik ezarri; ez dagigun euskerea txirotu, ilperrik galdu. Guztiok sendotu, aberastu, indartu ta bizkortu dagigun geure gurasoen izkuntzea.

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

GAZTE

MARTIN

Martin, nik ez nuen ezagutu. Baiñan bere lanak, pentsaera eta izakera, nolakoak izan ziren, entzuna naiz bein baiñon geiagotan. Orrela adierazi didate, bere senide eta lagun miñak:

Martin'ek, euskalerriko goraberak maite zitun. Edertasunez jantziteko itsaso zabalak, ibai meiar ta estuak. Zugaitz eta baratz loratuak. Mendietako iturriak, mendigoizaleen aboa freskatu eta bigundutzen zun iturrietako ur garbia. Zenbait arkaitz eta ermitak.

Martin'ek ordea, gauz guzti oiek baiñon geiago maitatzen zun zerbait ba-zan. Euskal artzai, bertsolari, nekazari, langille... itz bitan bukatzeko: GIZONA maitatzen zun. Beragaitik alegindu zan burruka bizian, izan ere, bere oiñarriak ain zuzen, oietxek ziran: Erria, gizona, gizona, erria. Bion askatasuna. Orrela jokatu zun eten gabe, aspertu gabetanik. Martin'ekin egongo nintzake beti zorretan, zilla batean exeri eta ezertxo ere egin gabe geldituko ba'nintz.

Martin'ekin zorretan egongo nintzake, baita ere, euskalerria, alde batera utzi ta beste errietako goraberetan sartuko ba'nintz.

Saiatu bearra daukat, bera eredu arturik, lanean gogoz, euskalerria maitatuz eta beragaitik lanean aleginduz.

Egun batean, gerla bide zelarik, Illunabar batean, edo egun sentian. Nork daki? Bere gogoak, bere lanak mostu zizkioten betirako. Gaizki esaten det. Bere asmoak zapaldu zituzten, bere lanak oraindik gal-gal bai dagoz neure barruan. Beragaitik maitatzen ditut, bere izerdi eta nekeak. Izan ere, maitasuna, ez da bi tirokin bukatzen den gauz ximple bat.

Errizale zintzoa zan Martin. Oiartzun'go baserri batean jaioa. Batzuentzat apaiz gazte bat besterik etzan izango, besteentzat berriz, langille purrukatua.

Askotan gogoratzen naiz Martin'etzaz. Izan ere, Martin nere osaba zan, ain zuren.

Nere osaba da...

RAMON ZAPIRAIN

ARALAR ALDETIK

Il ontan, Bagillaren I'goan, Aralar aldetik giñan, Mikel deunarenean Jaiabarria ospatzera joanda.

Zoragarrizkoa zan ango alaitasuna. An ziran gure Euska-Erriko'ko gozotasun guztiak. Talde asko eldu zan bertara egun eder au ospatzera.

Gure Euskal-Erri'ko alde guztietatik etorririk, an alkartu giñan gure txistu, danbolin eta beste doiñuekin bere.

Goizean, aurreko zelaian, Meza-santua entzunik asi ziran gazte taldeetakoak euren dantzak eta abestiak goratzen, oso ikusgarria zan ango alaitasuna.

An zan, gazte-gazte barriz, oiñak dantzari igartzen jakozala —ta bizar eder aren azpian igarri ezin ba'geuntzan bere— adurra eriola ta danera eldu eziñik, Intza'ar Damaso aita jatorra. Berakin itz egiteko aukerea izan gendun ta bai berbaldi ederra izan bere.

Eguerdia eldu zanean, batzuk gosetu-a bazkariak jaten asi zirala, beste batzuk txistua joten ta doiñuketan ebillazan, jaten egozeneri «on egin daizuela» esaten.

Ori olan ikusirik, edozein berbiztu egiten da, norperak gura ez dabela bere, naita lorik gogorrenean egon. Bertan entzun neutson zartxo bateri auxe esaten: «Au bai, badala Euskal-Erri'ko odol beroak egiten dauana. Olako gazteak diran artean, ain odol beroagaz, ez da galduko gure erri maite au!»

Edozeiñegaz mintzatzen geraturik, danak egiten eben euskeraz, baita, iñoiz bateron bategaz ondo ulertu ezin izaten giñanean, geure izkuntzaren eskubideakaitik, alde bietatik alegindu ta aurrera jokatzen genduan.

Ea ba, euskaldunok, eutsi dagiogun geurea dogun oneri, ta aurrerantzean ere iokatu onelan, baita, bear ba'da, gogorrago be. Alan izan dadilla, ta agur beste batera artean.


LANDALUZE'TAR JOSEBA

BERRIZ, ZABALA-ARANA

«Batak zeruratzeko ta besteak lurperatzeko...» Lenengo ta bein, ez dot izan iñoiz Zabala-Arana lurperatzeko asmorik. «Euskeraz zelan egingo dogu? (II)» idatzi nebanean mingotxtasun baten oiua zan bakarrik: egoera baldarra da oraingoa. Gure izkuntza maitea olatu artean dabil. Eta noiztik?

Arana'ren aldian bardin jazo zan. Ez dot iñoiz ukatu Arana'k eta bere jarraitzaleak euskerari emondako bultzada aundia. Baiña ez nago euren euskereagaz. Arana'k euskereari emondako indarra, ez zan izan bere euskeragaitik: Euskalerrian ba egoan alako atzkura bat eta gizon arek ikutu eutson bear zan lekuan; askatasuna, foru erdi-galduak eta abar azaltzea, ta euskaldunen aberri zaletasunari urtenera bat emotea izan zan dana egiteko naiko. Naita nai ez, politikaren bidea artu eban euskerak, eta beti jazo oi dan lez, zenbat eta aldakuntza zaratatsu geiago, jarraitzaleak gogorrago; baiña ez eban euskeraren bidera jo politikak. Euskera politika baten laguntzalea izan zan.

Zure ustez, ez ei dot asko erabilli bere «Gramatica Vasca»: Iru urte nebazalarik, Josu Arenaza'k erosi eustan «Leoi-Kumea» (uste dot Orixe'na, edo Orixe'k euskeratua dala, ez nago ziur, liburu ori orain eskuetan ez daukatelako), letra aundi ta margo ederrak ebazan benetan. Liburu aretan ikasi neban irakurten, eta bost urtegaz eskolara joan nintzanean, ba nenkian irakurtzen, baiña euskeraz bakarrik. Nere lenengo jaunartzea



zazpi urtegaz egin neban, eta egun aretarako oso ondo ikasita naroan «Dotriña liburua». Bederatzi urte neukazala uste dot, Bilbo'ra joan ondoren, San Mames kaleko, «Academia Larrea»n erderaz ikasten asi nintzanean. «Larrea»ko ugazabak, oso ondo ekian euskeraz, eta nik ez erdera ez euskera ez nekiazala esan ondoren, euskerazko gramatika bat emon eustan: Zabala-Arana'ren «Gramatica Vasca» 8 kuadernotan (euretariko bat edo beste etxean daukadaz).

Naita gipuzkoeraz egon au, ikasi nebazan lenengo gramatika urratzak. Gero, bizkaieraz zalako, Xabier Peña'ren liburuagaz aritu nintzan, eta liburu onegaz askori irakatsi dautset euskera. 19 urte nebazalarik, Tolosa'ko Maria'ren Biotzeko Semeen Nagusiak, 5'gn argitalpena bialdu eustan, eta bere bear izana euki dot, eta erabilli.

Geiago zer? 1931'gnean Medina de Rioseco'ra (Valladolid'en) bialdu eben eta an sermoigiñean aritu zan. Ba daukadaz orduko bere argitaratu gabeko, makiñaz ikatzitako egunkari baten orri bi: «La Espina: Valladolid'eko erritxu ontatik idazten dautzut oinguan, ene irakurle, Terese deunaren jaiosteko astebeta ementxe igaro biar dot-eta».

«Arantza deuna: Emengo txadon ederrian J. K. ren burestuneko arantza deuna gurtetan dabe. Ortik datorkijo La Espina ixena... t'abar.

Irakurrita daukat bere «Euskerazko Zenbakera», RIEV'en agertua, nik eskuartean, nere liburutegian dodan liburutxo onek diñoan lez, Donostia'n Aldundiaren Irarkolan (1929): «Tratadillo de Arimética» A. Villasante'k diñon lez.

Nire amonak (G. B.), zenbat aldiz eroan elizara ta irakurri ete-eban Z-A jaunaren «Donokirako Bide Zuzena eta Eskijerra (Kistar-Otoidija)» (1935, Verdes-Atxirika). Jadanik aipatu dot nere amona: ez bakarri aita, batez ere amona zan gurean irakur zalea, eta geiena euskeraz irakurri ere. Etxean daukat berak eskuz idatzitako «Santa Genobeba'ren bizitza». Ez dot ezagutzen euskerazko liburu ori, baiña uste dot argitaraturen bat izango dala, ta andik artuko ebala amonak. Dana dala etxean dago. A, ta beste liburu batzuek be bai.

«Bide zuzena» ori, izango da, bai, bear ba'da Donoki'rako, baiña ez euskerarako. Zati batzuk irakurrita daukadaz, baiña ezelan be ezin amaitu; begiratu ondo zelan egutegi ostean, 23'gn orrian diñoan: «Egutegiko deun oneik, ludijon zeu letz bixi ixanda, orain donokijan dagoz zoruntsu, ta betiko egon be...

Zenbait aldiz abestu dogu «Agur Jesus'en Ama»! Ona emen 401'gn orrian:

14. Agur, Josu'ren Ama

1.º

Agur, Josu'ren Ama,
Neskutz mattetsuba,
agur, itxasoko ixar,
geure jabolia.
Agur, Donoki-euzki,
eskarrez betia:
agur, obendijoen
lior ta abarua...

Esku artean erabilli ta pozik irakurritako batzuk, lemoarrak eta nabarniztarrak eukitako eztabaidak dira («Las flexiones del pretérito del verbo transitivo. Euskerea, I (33 orr.) V-VI (316 orr.) 1934; VIII (501 orre.); X (633 orr.) 1935), Altube'tar Seber jaunari egindako eskutitz agiria, benetan min emon eutsolako, Seber jaunak kritika egin eutsen euren euskereagaitik-eta. («La vida del euskera»). Uste dot, danak irakurri bear leukela Altube'tar Seber'ek Donostia'n, 1933'gnean emondako «La vida del euskera» itzaldia.

Eta, irakurri dozue Zabala-Arana'ren «Birilla Deuna». Irakurri egizue.

Asko luzatu naz eta ezin dot jarraitu, examiñakin gabiltzaz eta ez daukat astirik idazten segitzeko, baiña Kamiñazpi'ri, ta besten bateri, azalduko dautsedaz nere kezkak noiz edo noiz. Nere erriko istori bat egiten ari naiz. Ba daukadaz esku-idazti asko, ta batez ere bat, garrantzi aundikoa literatur aldetik. Nabarniz'ko istorian, Zabala-Arana'k leku aundi bat izango dau, aundia izan zalako, baiña nere euskeraren edo euskeratzazko usteetan, lengoan jarraitzen dot... oraingoz beintzat.

Amaitu dagiala berak, bere ain maite eban «Miren Neskutza» (ta bide batez ikusi zer diñon A. Villasante'k) idatziaz:

Mendi jagija
edurrez zuri
andikan ura
otz eta garbi
Urtzi'ren Ama, Miren Neskutza
eskai-itturri.

———

Baratzan eder
lore gorrija;
zugatzan, barriz,
uso zurija.
Jaunak egin dau Miren Neskutza
sortzez garbija.
Itxasua urrez
zabal ta sakon;
arraña ugari
bai dala berton!
Gixaumientzat Miren Neskutza
eskartsu ta on.

GARATEA

Oarra: *Ezin izan doguz erabilli izan emen r, t, ta bestelako kakodun izkiak. Agur.*

KONTU KONTARI

Euskaldun bat edo beste, munduko edozein bastarretan aurkitu oi izaten dala, entzunak gara gustiok.

«Kirikiño»ren ABARRAK deritxon idaztian agertzen dan euskeldun baltza ta bermeotar senar-emazteeri gertauriko a be bai. Onei, Txina'ko portu baten auxe jazo yaken: Kalea zear joiazala, praille bat ikusi eben bizar itzelarekin, belaunetaraiño elduten jakon bizar ederrarekin. Bere inguruan igarotzean, emazteak, bermeotar esakerearekin esaten dautso senarrari:

—Aave Marie! Bizarrok ez dira bereak izango!

—Nai dozue tirakada batzuk egitea, neureak diran ala ez, ikusteko? —erantzun eutsen irriparrez lekaide arek, euren aurrean geratuaz.

Gaur baiña, Elantxobe'ko ontzi-buru bateri jazo jakona kontauko dautsubet.

Bein, bere ontziarekin lenengoz Australia'ko kai aundi batera eldu zanean, uri ori barrutik ezagutu gurean, urten zan kaleak zear. Enparantz edo plaza batera eldu zanean, jende pilla ikusi eban zerbait ikusgarri egoan leku baten, eta bera bere ikusguraz urreratu zan.

Ustai antzo biribildurik an egoan giza-talde aren erdi-erdian, indio bat ikusi eban dotore jantzita goitik berako sedazko soiñekoagaz, buru-oial edo turbante ta guzti. Lurrean sarturik aga aundi bat egoan zutik, eta agearen barrenean kutxea, aundi zamarra. Indioak asi eban bere lana. Iriki eban kutxearen estalkia, tapea, ta bertatik suge aundi batek burua azaldu eban.

«Goora!», agindu eutsan gizon arek boa-sugeari. Eta suge arek, zutik egoan agan kiribildurik, goiko erpiñeraiño igon eban, astiro-astiro.

«Beera!», agindu eutsan barriro. Ta sugea beeraiño jatsi zan. Orain diñotso: «Goora!» Sugea agearen erdira eldu zanean: «Geldi!» Sugea erdi-erdian geldi lotu zan.

Gure euskaldun ontzi-buruа, ikusten ebana ta batez be entzuten ebanarekin arrituta, errebentauko ezpaeban, oiuka asi zan esanaz:

—Iii! ori euskeraz dok!

—Egon adi ixilik, neu be elantxobetarra nok-eta! —erantzun ei eutson «indioak».

ABELETXE

AI MARI MIGEL AU DON IXTILLUE!

Gauza sakonak errez esan

Egin dizkizut, ba, egin aalak, Urli, eskabide ori nork idatzi dun gogoratzeko. Alperrik. AGUR sailla begiratu ere bai birritan; nire begiek itz oriek jo ez, ala ere.

Urli'ri ta irakurle guziei zuzendu bear lan au. Aita Santua'k bezela: «Urbi et Orbi».

Berrogei urtez, lan eta lan, ikastolan eta bitarte orretan, bere egitekoa ondo bete nai, ikasi ta ikasi ari izan danak, ba-ote dizue, bere langintzaz, ezer esateko eskubiderik?

Ta AGUR'en tokirik?

Ikusiak ikusi, entzunak entzun eta orain, berriz, irakurria irakurri, txunditua daukazute Ira. Txintik ateratzeko beldur.

AI MARI MIGEL
AU DON IXTILLUE!

Atsegiñik aundinetakoa dizuet, gero, berau; mendian gora baiño pozikago ni Kamiñazpi'ren lanak irakurtzen eta alako batean: Alde emendik «intelektualok»! Ospa AGUR' etik! I ere, Ira, «intelektual» jotzen ote aute? Eta AGUR'etik ere, alde egin bear?

Kezka ori, ixtillu ori, sortu nire buru gaixoan, Kamiñazpi'ren itzok: *«intelektualak euren aldizkariak izan daizezala, len diranak gitxi ba'dabez berriak sortuaz»*.

Egia, «intelektual» eta orrelako itzak, illunxko onoko onentzat. Orain arte, xaloxalo, esan degun *ikasiak* itzaren ordez erabiltzen dezutela «intelektual» ori nik uste. Ta, lenengo mailla baiño goraxeago igoak ote gaituzuen, ba, irakasleok eta... Ortik atera nik, uxa! ori guretzat ere ote dan.

Itz orietzaz zuk adierazi nai zenuna, gaizki jaso ote det, ba, Kamiñazpi? Naiago nuke.

Besterik ere, ba-da, ordea, arazo onetan.

«Intelektuak»-aldizkari orietan idazle izango ez ba'gera ere, irakurle, beintzat, izan bear irakasleok. Bestela, zuen seme-alabai amaika, amabi, amairu urteko gure ikasleei, nola irakatsi gai zaillak ere errez esanaz? Gerok ikasteke, nola?

Naiz gu, irakasleok, «intelektuak» saillean sartu ez, *«aldizkari barriak sortu»* orrek, ikutzen gaitu, beraz.

Ez gaituzue, ez, gaurko irakasleok, orain bi edo iru gizladi, Tolosa'ko irakasle aiek bezin errukarri. Orra zer zion garai aietan Erri-Araudiak: «Los Maestros los viernes podrán pedir limosna». Orain urte batzuk, Tolosa'ko Alkate izandako adixkide miñari entzunak dizkizuet itz oriek.

Gaurko gure ugazabak ez dute, ez, orrelakorik idatzi beren Araudietan. Ola ere, iru edo lau arpide ordaintzeko lain irabazten degula uste ote dezute?

Bestalde, Kamiñazpi, zenbaitentzat, askorentzat agian, zeori ere ez ote ikasia, «intelektuala»? Zer dituzu, ba, nik ain gogoz irakurtzen ditudan AGUR'eko zure lanak, zer dituzu, ba, euskera-irakasketak, elizti-irakasketak ez eta?

Altube ta, bere lanetan aitatzen ditunak Aitak eta Amak irakatsia baiño geixeago dakilla...

AI MARI MIGEL
AU DON IXTILLUE!

—Aizan, Ira, zein dezute AGUR'en Arangoiena? Orren «maltzurkeria salatu bearra», bai lan bikaiña.

Nire poza, ikasiak ere, gure AGUR aintzakotzat artzen ikusita. Poz ori eman zidan emakumea, *ikasia* niretzat. Gaztetan bigarren maillako ikasketak egin eta ezkonduta ere, ez dizute eten bere buru-lantzea. Beti ere bai, baiña, seme-alabak *gaur* bear bezela ezitzeko, gurasoek iñola ere ezin baztertu dezaketen egitekoa, orixe.


Txiki ta aundi, gizon eta emakume, ikasi ta ez ikasi, sendian bezelaxe, guziak alkarrekin, ez ote eder AGUR'en ere.

Ta bazkari egoki batean bezelaxe, guzitik AGUR'ere: zuku, eltzekari, zizka-mizka, guzitik aukeran irakurleentzat.

Nik neronek, Abeletxe'ren idazkiak irakurtzen dizkizuet aurrena. Gogoa arintzeko orrelakorik! Jarrai, adixkide, jarrai urko lagunari par egin arazten. Ba-dago oraintxe bearra bazterretan. Par puska bat egin ezkero, beste idazkiak irakurtzeko ere, aldarte obea edonork.

Urrengo alean, urrengo AGUR'en, iñoren ezezkorik jasotzen ez ba'det, berrogei ta sei urtez *«gauza sakonak errez esan»* arazo orretan ikusi, ikasi ta jakingarri derizkiodan zertxoa argitaratzen, errez (!) argitaratzen, saiatuko.

IRA'K



GU, EMAKUMEOTZAZ ARDURATU LEGIKEN BANKU BAT?

Bai, ba-da bai, gu, emakumeotzaz be arduraturiko Banku ori. Bere laguntza ta adizkidetasunik onenak, gure kezkak arindu naian, eskeintzen dauskuzan Bankua.

BANCO DE BILBAO

onek, emakumeen eskubideak onarten ditu.

Autorizado por el Banco de España

KIROLAK

ARRAUNLARIRIK ONENA

JOHN FAIRFAX

Nere bizian, millaka liburu irakurri ditut. Oietatik gogozkoenak, itxas kondairak izan dira neretzat. Itxasoko gertakizunen berri jakiteko ingelesenak izan zaizkit egokien. Oiek bai dira yayoak itxas-zabalean ibiltzeko... nola pakean, berdin gudan. Pentsa, makiñadun lenengo itxas-ontzia, berak egin zuten eta Ameriketa'raiño eldu. Naiz ontzi txiki edo aundiz, beti izan dira jaun eta jabe itxas bazter guzietan.

Gizon ospetsuak dozenaka dituzte, naiz gudariak, naiz arraintzaleak, eta batez ere adurzale abentureroak. Auetako bat, besteak utzita, John Fairfarx da.

Aspaldi idatzi nun onen berrietzaz, argazki ta guzi agertu zan, bere txalupakin. Fairfax onek lenengo ibillaldia egin zuala bizpairu urte bai-dira; Canarias'etik irten eta Caribe aldeko lurraldeetara eldu. Irakurri izan nuanean, ezin nun siñistu ere! Nola joan lezakean arraunean, emendik Ameriketa'raiño. Bakarrik gaiñera!

Joanaldi aretzaz zerbait idazteko, bai-nun nik eskubidea. Eskubide ori, nik ere, beste lagunekin, orren antzeko ibillaldia egin gendualako. Gure ontziak ordea, ba-zun makiñatxo bat, naizta ontzia txikia izan, beti lagundu zigun Ameriketa'ra ongi eltzen. Gure ontziak SEI tonelada zitun, ta olatuak beti ontzi barruan; dardaka sarritan bildurtu arazteraiño... Urteak dira joanaldi ura egin genduala! Gorderik dauzkat, ongi idatzita, ibillaldi aren berriak. Utzi dezatan, beraz, gertakizun ura, ta goazen Fairfax'en kontuak idaztera.

Bigarren ibilladian, Fairfax trebea, San Francisco kaiatik asi, ta Australia'ra arte arraunean joana da. Alajaiña! Ez dek ori auntzaren eztula! Ta etzan bakarrik, berakin eraman zuan aodregaia... naizta, bukatu bezin laister, andereiño, orrek esan: Ez det Fairfax'ekin ezkondo nai!... Olako bide luzean, beinzat, izan du zeiñekin itz egin; lenengo ibillalditik bestalde, itzegiteko itxasoko txori edo arraiñak besterik etzun izan-eta. Ta, orelako bakardadean, ez degu esan edo idatzi bearrik, alegia, senar eta emazte bezela joan zirala. Nolabait, bien iritziak ez izan berdin neurtzekoak, eta aserre ugari erabilli dutela, berak esanak diran albisteak ditugu.

Oien eztabaidak utzirik, ikusten degun bikaintasuna ikaragarria da. Ameriketa'tik Australia'ra arte arraunean joateak, berak, esaten du guzia. Batez ere, Fairfax trebeak izan zun egun bildurgarri ura, tiburoiak ortzakada eman zitena. Andereiñoaren estualdia aundia izango zan... naizta tiburoiaren mokadua indar gabekoa izan. Eldu izan ba'zion gorputz erditik... besterikako gertaera izango zitzaion!

Gogoratzen naiz, beste batean, Venezuela'ko La Guaira'tik Los Roques deitzen dioten ugarte pilloetara arraintzan jun giñanekoa. Bein batean, atunak arraptzen geundela, autuna ontzi barrura sartu baiño len, aparejoa azkar sartzea ez ba'zenun, eltzen zioten atunari, tiburoi aiek, eta buruza bakarrik arrapatu oi gendun. Caribe itxasoan, guziak dakinten albistea da, milloika dabiltzala. Ta, itxasora jausten ba' zera... Zureak egin du! Mokari goxoa tiburoientzat!

Egun orretan, gelditu giñanean, millaka azaldu ziran ontziaren azpian, ta kordel lodi ta amu aundiekin berak arrapatzen asi gu. Eskuakin ere arrapatzeko era zegon... baiñan, zeiñek eldu?... Beren ortz zorrotzak, illeran! Ta, orrela, emezortzi arrapatu genduzanean, nere lagun lekeitiar Kosme Goitiz'i esan nion: «Goazen emendik motel, bestela auek ontzia ere jango ditek-eta...»

Tiburoia ontzi barrura sartu bezin laister, alako puiñal batekin, kokotean sartuta, il egin bear dira. Ori egiten ez ba'dezu barruko egur eta arrapatzen duten guzia ebakitzen dute, aixa ta azkar. Zazpi illera ortz, ta serrak zirudien!

Gauza auek, batez ere, Fairfax'ek eta bere lagun Sylvia Cook'ek iñork egin ez duna egin dutelako esaten ditut. Olako trebetasuna ikusita, arritu ere egiten gera. Ez dakit Pazifico itxas-zabalaren berririk; ze-naloka aize ta ekaitzak sortzen diran. Dakitena, emen, Atlantiko itxasoan, bein eun bat milla kanpora irten ezkero, gero, beti, aize bat dabillela, «Alisio» deitzen diotena. Noski, ontziak, bear bezela egindakoa bear du izan, sakona ta sendoa, itxas aserrean zaitzeko. Udaldian ordea, tropiko aldean, urakanak sortu oi dira. Orrek arrapatzen ba'zaitu!... Ireak egin dik! Urakan oiek duten indarra, ikaragarria da. Pentsa, egun betean, Norfolk'tik irten genduanean, urakana agertu zitzaigun. Gure ontziak zortzi milla tonelada zitun, ala ere, laisterka, berriro portu barrenera sartu bearra izan gendun! Ez da txantxetako kontua!

Aurrera joango nintzake idazten, baiñan emen ez dago ortarako lekurik. Beraz, bukatu dezadan.

E. OZKIN

ORIZ JANTZIA

Ori izaten da urtero, aldi onetan, txirridula-rien amesa, oriz jantzi, txirrinduketan dan leiaketa gorengoaren jake oria, aurretik doanaren ezaugarria. Nun? TOUR'ean.

Orretan dabiltzan leiatsu orrein artean ez da iñor oriz jantziko ez litzakenik, batez bere oillartsu agertzen diranen artean, baita an barren-barrenean be «domestique» langintzan izaten diranen artean.

Giroak olan eskatzen-eta, ta jakingarri lez, ona zer azalduko dogun gaur. Nortzuk al izan eben, asieratik azkenera arte jake ori ori aldean, galdu barik, erabilli izan. Au da, lenengo ataletik Paris'era eldu arte. Artu gogoan:

Octavio Bottechia, *italiarra.* **1924**'*gnean. Lenengo atala, Paris-Le Havre, irabazi eban eta azkenera arte nagusi.*

Nicolas Franz, *luxenburgarra.* **1928**'*gnean. Lenengo atala, Paris-Caen, irabazi eban ta ara nundik, egun orretan ez eban jantzi jake oria lenengoz, aurreko egunetik baiño, bera izan zan ba* **1927**'*gnean irabazle, ta ortik, Paris'tik bertatik urten zan jake orregaz.*

Romain Maes, *beljikarra.* **1935**'*gnean. Paris-Lille izan zan irabazi eban ekiñaldiko lenengo atala.*

Jacques Anquetil, *prantzesa.* **1961**'*goan. Ez eban ososorik lenengo-lenengotik jantzi. Atal orrek, ba, zati bi izan ebazan egun berean, ta berak bigarren zatia irabazi ta egun osokoan lenen geratu zan. Darrigade izan zan aurreko erdia irabazi ebana: Rouen-Versalles. Anquetil'ek bigarren zatia, banakakoa, Versalles'en, ta egun osokoa danera.*

Ta, aurten, nor oriz jantzita, ta noiztik ta noraiño? Egin zeure aukerea ta Merckx bera ez ba'da, azelako begia, igartzen ba'dozu!

PERTIKATSOLA

GURE «ORIXE» VI

Eta zearbidez: **Pio Aita Kaputxino Zauriduna.**

Iru egun areitako kronika

Aita Santuen oldozkera ta egikera Pio Aitaren arazoan azalduta, neure eritxia be (iru egunez Pio Aitagaz egon nintzan ezkero), irakurleek yakin gura izango dabela, iruditu izan yat.

Eta ikaskizun oneri amaia emon baiño leen, neuk iru egun areitan ikusi benaba zelan edo alan yakitera emotea, gura dot. Neure eritxiak ez bide dau asko balio izango; ez bide da yakintsu ta dirdiratsu izango.

Gazte nintzanean, «Prantzisko Aita Kaputxino Elizondarrak, *Lore Usaidun-Mamitsuak* liburua, argitara eban 1922'an. Liburuaren 236-240 orrialdetan Pio Aitaz diardu ta «Il Capuccino Santo» deituten dautso. Orduan izan zan lenengo aldiz, Pio Aitaren izena paperetan edo liburuetan irarrita irakurten nebala. Itzez lenagotik be, zer edo zer baiño geiago entzuna nintzan; ta aren argazkia ikusia be bai. Baiñan liburuetan ta irarritako paperetan ez.

Geroago Euskalerritik urrin ibilli izan nintzan, urteak eta urteak; ogei ta zazpi. Urte areitan be, bai itzez baita eskutitzez, Pio Aitaren izena ta gomutea gogoratzeko ta erabilteko aukerea, bein edo beste baiño geiagotan, izan neban. Ori ez da arritzekoa. Atserrian 27 urte eginda, barriro neure Errira etorri bearrean aurkitu nintzanean, orra orduan be, neure gogoak Pio Aita ikustera yoateko emoten eustan. Eta neure buruan gogakera au nerabillen:

«27 urte leenago, Itali'tik ibilli be ibilli nintzan; ta orduan Pio Aita ikustera yoatea nai izan neban; baiñan gogor debekaturik egoen; ta ez neban ara yoateko baimenik eskuratu aal izan». «Ea orain, Txina'tik itzulita, Erroma'n nagoela, ea orain aal izaten dodan...»

Orain be, ez zan erraza ara yoateko baimenik lortutea; baiñan IV atalean idatzi dodanez, ene adiskide ta gure Mixioen sekretario zan Labiano'tar Eli Aitari eskerrak, yoatea izan neban. Eta yoan nintzan. Baiñan ez nintzan yoan ara, mirari billa. Siñistuteko, nik ez bai dot mirarien bearrik. «Zauridun pertsona» ikustera, bai; orretara, bai, yoan gura neban.

Banekien «Zauridunen» artean, geienak emakumezkoak izan dirala; gizonezkoak barriz, Asis'ko Prantzisko Deunaz landa, gitxi izan dirala. Ba nekien be, Elizak ez dituzala zauridun pertsonak arein zauriakatik aldaratara igoten; areik egin ta burutu eben bizitza santu, miresgarri ta garbizuzenagaitik baiño.

Eta yoan nintzan. Eta an ikusitakoek arritu-arriturik utzi ninduten. Egun oro, goizeko lauretarako, eliz-aurreko plaza zabala, erromes ta beilariz (pelegrinoz) beterik, oi egoen. Goizeko lauretarako argi egoen aizea; ta oso ondo ikusten zan. Eta plazaertzeko bideak ta bazterrak, urrin-urriñeraiño, autobusez ta belbil txikiez estaliak egozen, lurra ezin ikus izateraiño.

Goizeko bost-bostetan, Pio Aita mezatara yasten zan. Eta mezak ordu bat eta geiago; baita ordu ta erdi ta geiago be, irauten eban. Yendeketa, yaiera andiz ta biotzeko sugar biziaz meza entzuten egoten zan, eliz osoa ta eliz-ataria ta abar betetan ebala. Meza amaitu-ta, goiz guztian eguerdi arteraiño, Pio Aita bera beste bospasei fraideekaz, autortegian ezarrita, autorpenak entzun ta entzun. Pitean-pitean, abadeen bat autortegitik atara egiten zan, siñistunei gure Jauna emoteko.

Pio Aita bera be, berari egokion orduan, besteak lez autortegitik urten ta gure Jauna banandutera yoaten zan. Sarritan ikusi neban Pio Aita komunioa emoten; baiñan bein be ez, «aurrera pasa egiten zala, baten bati gure Jauna emon barik», «Orixe»k idatzi eban lez. Goiz oro ta goiz osoz, eguerdi arteraiño, autorpenak entzun ta entzun... Goizean ez oi eban gosaririk artuten. Eta eguerdietan, geugaz bazkaltzera etorten zan. Arrastietan barriz, iruretarako sakristiko autortegian zazpirak arte, autorpenak entzuten. Gizonak bakarrik autortuten ei ziran arrastietan.

Zazpiretan Jauna agirian ipiñita, errosario santuz esaten eben ta Andra-Mari'ren arrendia (letania) abestu. Neskatillek, elizatik, Andre-Mari'ren arrendia bai ederki ta gozoki ta siñismen biziz abesten ebela...!! Bai samur-samur ta bero-bero ta bioz-biotzez!... Bitartean Pio Aita goian, koru bazterrean, aulki zar-zar batean ezarrita. Eta beste fraideak be koruan. Ta eliza, orduan be, yendez bete-beteta.

Elizkizuna (ordubetekoa) amaituta, afaltzera yoaten giñan. Pio Aitak ez oi eban afaltzen. Komentuak terraza bat eukan; ta an geratuten zan gaueko freskurea artuten. Afal ostean, geu be ara yoaten giñan, beragaz berbetan egoteko. Berba gitxi egiten eban. Ori zan Aita Zauridunaren egun oroko bizitza.

Gauetan, ostera, nik ez neban ikusi; baiñan esaten ebenez, gau osoa edo zatirik geiena otoitzean igaroten eban. Ta urrengo egunean be, bardin: goiz-goizeko bostetan meza esan, yendeek alango debozioz entzuten eben «Pio Aitaren meza»!... Eta gero goiz osoa autortegian!...

Orduan iraílla zan; eta fraideek iñoenez, udan etorri oi ziran erromes ta beilariak, askoz geiago izaten ei ziran. Ta olan, ez urte batzutan edo bestetzutan bakarrik; bere bizitza luze, guztian baiño. 81 urtetan il zan. Eta il-da gero be, aren illobira ta aren komentuko elizara pelegrinazioak bardin oi doaz.

* * *

Nork edo nortzuk eta zelan lortu eben, beilariak eta pelegrinoak, milloika ta milloika, Pio Aitagana eroatea?... Praideek ez eikeen alango zabalkunderik egin. Ez ei eben orretarako ez dirurik ezta beste biderik ta indarrik. Ta gura be, ez eben gura. Pio Aitak berak gitxiago oraindik. Gertakizun arrigarri ori aituteko ta azaltzeko, asmakari au gogoratu yatan neuri egun areitan; ta neure asmakeria danez, bada ezpadakoa ei da, ezin daike ziur-ziurra dala esan.

Agian, erromes ta beilarien artean, bai ei ziran baten batzuk, gaxotasunetik osatuak izan ziranak; ta eurek, euren barruan, Pio Aitaren laguntzaz osatuak izan zirala, uste. Agian, bai ei ziran be beste batzuk, Pio Aita ikusi ebenak, bikoitzezko egotez (bilocación) euren begietara agertu yakelako. Egote bikoitzezko miraria, bein edo beste baiño geiagoetan gertatu yakola, esan oi da. Ba eitekezan be beste batzuk, eurengan edo euren sendian mesede andien bat artu ebenak; eta eurek Pio Aitaren laguntzaz artu ebela, uste izan; ta eskerronez beterik egon. Eta abar eta abar...

Ta ez litzake eziñezko izango be, orreitarikoak izatea, Pio Aitaren entzutea, lekuzleku ta lurraldez-lurralde, zabaltzen asi ziranak; ta Pio Aitaganako yaiera ta garra, gizonetan, sortu ta sutu ebenak. Aren bidez mesedeak artuak izaki, alan uste eurek; ta arenganako zalea ta atxikiera mundu barrena zabaltzen aalegindu, biotzak olan eskatuten eutsela-ta.

Yendeok, gitxi edo asko: ortan neure burua ez da gelditu; baiñan beti be, yende elizarakoiak orain beintzat, munduaz zelanbait nekatuak ta biotz bakea gorago aurkitu bear dala, etsirik egozenak. Arein gaxoak!... Zerua lurrean aurkitu nai!... Ta Pio Aita Kaputxino Zauriduna, zerukoalezkoa zala, uste izan!... Jainkoak, ogeigarren mende onetan, mundua ta gizonak bide oneratzeko, lurrera ekarria!...

Neuri buru-biotzean, berez, erne yatan gertagiaren azalpen ori, egia ba'litz, orduan zeruak nai izandako gertagia izan zala, autortu bearrean gagoz. Ta zerutikako bidez edatua izan zala lurbira osoan.

* * *

Baiñan arerioek, be, zati andia izan eben Pio Aitaren izenaren zabalkundean. «Acta Apostolicae Sedis» deritxon Batikano'ko aldizkari ofizialean, 1923-1931 bitartean, bost aldiz agertu zan Pio Aitaren kondenazioa, «aren zauriak ta aren inguru esan oi ziran gertagiak ez zirala goi-izatezko ta zerutikako gauzak» iñon Erroma'ko Kongrgaziotan goienekoa zan «Sant Uffizio»ak. Eta munduko siñistunei debekatzen eutsen, Pio Aitagaz aremonak izatea; ta arengana yoatea, t. a... Bein da birritan ta bost bider olan.

Yakiña da, «Sant Uffizio»ak, Pio Aitaren arerioen eragieraz ta guzurrez atzipetuta, emon ebazala olango erabakiak. Arerio oneik, ostera, kalte egin ordez, alde egin eutsoen Pio Aitari, gura izan barik be. Siñistunen artean sortu bai eban yakin-min bizia ta Pio Aitaganako leia ta garra; eta askoen biotzean, baita arenganako amorrazioa (fanatismoa) be.

* * *

Neure iru egun areitako kronika, gaingiroki ba da be, ager ondoan, ona orain laburlabur, orduko neure gogoeta, zalantzarik bage buru-biotzean nerabillena; ta neuretzat argia ta egia dana: Pio Aitaren apostolutza: orixe irudi izan yatan neuri, orduan, arrigarriarrigarria, mirarizkoa ta miraria.

Pertsona batek bakarrik, zelan egin ta eroan daike alango apostolutza, «luze-zabalera»n miresgarria, munduko bazter orotako yendeak etortzen bai ziran Pio Aitaren ondora; eta «sakon»ean be miresgarria, yendeek pekatuzko bizitza utzi ta kristau-bizitzara itzultzen bai ziran?...

Ori dana, zelan ete daike pertsona bakar baten eragieraz burutu, Jainkoaren berarizko doaia izan bagerik?...

Gertakizun au irudi izan yatan, neuri, osoro arritzekoa; eta eritxi bardinean nago orain be, urteak igarota be... Eta naiko da. Luze atara yat 6'garren atal au. Beste atal txiki bat geratuten yat oraindik ikaskizunari amaiera emoteko. Beraz urrengoan amaituko dot.

Bitartean agur, irakurle, Jainkoaren baitan.

YURRE'TAR YULEN, A. k.

EUSKALERRIKO IPUIÑAK

LAMIÑEAREN GERRIKOA

Buztintza'tar Errose'k eginda, eta Kerexeta'tar Jaime'ren ardurapean argitaratuta.

«Angurreta» basetxeko etxagunaren semerik zaarrena, domeka arratsalde baten, erriko enparantzan aurresku eder batzuk eginda gero, illuntzean etxerantz abiatu zan.

Gau aretan, zerua izarrez ondo apainduta agertzen zanarren, illargiaren argi bigunak biderik ez baztarrik ezelan be ez ebazan argitzen: inguru guztiak illun-illun egozan. Gauaren itzela!

Ori zala-ta, gure mutil morroskoa, oiñakaz arri-mokillen batzuk noiz joko, bildur-bildurrez yoian, ikaraz esaten ebala: «Ene! Au gauaren baltza! Au bildurra! Illargiaren ordez, ...bideak nok argitu aurkituko ba'neu...»

Onetan, bildur-ikarea kentzearren-edo, santzo errime bat jaurti eban; eta mutillak jaurtiriko santzo errimeari, beste santzo batek erantzun eutsan.

Angurreta'ko **mutilla santzo zoli a entzutean, ikaraz galduta jarri zan, bere kolkorako ixil-ixillean iñoala: «Ordu onetan, nor izan daitekek emen? Emakumearen abotsa dala esango neukek. Baiña, gau baltz onetan eta ordu onetan, olakorik ezin izan daitekek...»**

Bururakizun orreik ebazala, Angurreta'ko **mutillak, astiro izanda be, bidean aurrera egiten eban beti.**

Alako baten, Oxinburu'ko **zugatz-artetik emakume bat, argiontzi gorri bat eskuetan eukala, agertu yakon.**

Emakumea, argala ta luzea zan. Arpegia edurra baizen zuria, eta begiak ikatza lako baltzak ebazan. Bere soiña, kolore askodun jantzi dotore bataz estaltzen eban; eta buruan eban ule luze ta gorrizkea, lepotik beera apainkiro jausten yakon.

Mutilla, alako emakumea ikustean, ezin geiagoan geldu zan. Eta, zer edo nor izango ete-zeitekean jakin-gureak jota, ben-ben itandu eutsan:

—Emakume ezezagun ori, onez ala txarrez zatoz?

—Onez naiatok, mutil —erantzun eutsan emakumeak irri-barrez—. Ni iretzat ezezaguna ba'nik be, i niretzat ondo ezaguna az, Angurreta'ko **etxagunaren semerik zaarrena az-ta. Ez dok, olan?**

—Bai, Angurreta' koa **naz. Baiña, ordu onetan, ze asmok ekarri zaitu, ba, nire ondora?**

Ik, bildurrez jaurti dokan santzoak ekarri naiok, mutil. Gaua illuna yagok-eta, illargiaren ordez, eskuetako argiontzi onezaz iri bideak argitzera etorri nok. Bidelagun ez nok gura, ala?

—Egin-egiñean be, bide illun eta lakar au ondo igaroteko argi on baten bearra ba-dot, bai... Beraz, bide-lagun ona izan ezkero, argiontzi orren argitan, bide-zidor eta mendiak poz-pozik zearkatuko neukez...

Eta Angurreta'ko **mutilla ta emakume agertua, argiontzi gorriak bideak ederto argitzen ebazala,** Angurreta **basetxerantz jo eben.**

Emakumeak, bidean yoiazala, iñun diran barriketak eginda, mutil gaisoa itsututa zer esan be ez ekiala izten eban.

Eta emakumeak, olan barriketan ziarduala, alako baten, zerurantz begiratuta, auxe esan eban:

—Gau illun-illun onetan, zerua zoragarri yagok, ba... izar politez iñoiz baiño orniduago yagok-eta. Begiratu egiok Mugarra-aldeko zeruan jausi-gurarik dingilizka dagoan izar gorrizkeari. Ederragorik ikusteko be!

—Alantxe izan be... Eder-ederra da, gero. Ipar-aizearen indar leunak batera ta bestera eraginda, kolorerik politenak eta dizdira arrigarriak egiñez, ikusgarriro dago, egon be...

—Ba, izar zoragarri orrek, bere kiñu-ikara politakaz maite-maite nabela agertzen yok. Eta bere abots ixil-eztitsuaz belarrira ots gozoa egiñez, beraganatzeko diraustak. Joango ete-nok? Baiña... bide bakarti onetan, i bertanbeera bakarrik izteak errime tamaltzen naiok.

—Ene, olakorik! Zelan arrano igoko zara ara goraiño?

—Igoko ez nok, ba?, aizearen umea izan-eta?

—Aizearen umea? Egundo entzun ez dodana orixe. Oraindiño aundiagoak entzun bear izango doguz...

—Ez ago ez dan gauzarik entzuten: beiñola, ipar-aize gozoak eta ego-aize bigunak Usobi'ko landan sortu yoen lora ederretik etorria nok-eta. Orregaitik, odei ta izarretaraiño igoteko ego bearrik ez yoat, nun gura ta antxe nagok-eta.

Olako gauza bakanak entzuten, mutilla ule-zutik jarri zan, berekautan iñoala: «Zer ete-dok berau? Beronegaz, onez ala txarrez ete-naioak?...»

Bideak eta mendiak igarota, alako baten, Angurreta **basetxera eldu ziran. Eta, etxe-ondoan apur baten berbetan ekinda gero, emakumeak, gomutagarri bat emoten eutsala esanez, gerriko gorri-dotore bat ipiñi eutsan mutillari. Mutillak, bere gerrian gerriko gorria ikusi ebanean, dardaraka baten asi zan: bere bide-laguna, «Zirtzil» lamiñea zala, orduantxe jakin ebalako, baita arek emoniko bezuza «zoritxargerrikoa» zala igarri ebalako be.**

Eta, bere bide-lagunari, lamiñeari, berba geiago egiteko adorerik arean be ez ebala, arinka baten etxerantz abiau zan.

Eta etxeratzeaz batera, sutondoan egoan aita zaarrari, «Gabon, aita», esan eutsan.

—Baita euri be, gabon, gau ona ba'dakak, beintzat... —erantzun eutsan aitak ben-ben. Beste domeketan baiño askozaz beranduago etxeratu az gaur. Zer jaso yak, baiña?

Orduan, semeak, gerrian eban gerrikoa erakutsi eutsan. Agurea, gerriko gorria ikustean, negar baten asi zan; eta ordu luzeetan negarrari ekinda gero, agura gaisoak bere semeari abots tamaltsuz esan eutsan:

—Galdua az, mutil! Zirtzil-**lamiñearen «zoritxar-gerrikoa» daukak aldean-eta... Orain, ori dala-ta, lamiñatzar ori, eugaz ezkondu gurarik, ementxe etxe-inguruan ibilliko dok beti. Eta bere asmoa beteten ez ba'yok, iñun diran erasoak egiñaz, zoritxarreko egingo au betiko... Orra, zelako etorkizun baltza daukoan, alde bietara galduta ago-ta!**

Olako berba bildurgarriak entzunda, mutilla geisotu egin zan. Eta, iru edo lau egun barru, tamalez beterik il zan.

Ilda biaramonean, auzoetako lagunak, gorpua lurperatzera eroan eben. Eta, orretan ziarduela, «Zirtzil» lamiñea, negarrez eta uluka, lagun-artean sartu zan, deadar aundiz iñoala: «Ori neurea da, ori neurea da!» Eta illobiraiño olan deadarka lagunduta gero, lamiñea Oxinburu'ko artzuloan garrasi baten sartu zan.

Ori ikusita, gaiñeko egun baten, «Landaluze» ta «Agerre» basetxeetako mutillak, lamiñearen billa joan ziran; eta, ibilliak eginda gero, basoan aurkitu ebenean, arrika ta makillaka il egin eben; eta gero gorpua Arranaitz gaillurretik beera jaurtita, zatizati egin eben. «Zoritxar-gerrikoa», barriz, ota-abarrakaz eta su aundi-aundia eginda, bertan erre-erre egin eben.

Egun aretan, Zirtzil'en **eriotza zala-ta, Aldebaraieta'n jai izan zan; eta ujuju eta santzo askoren artean, begi-begiko erromeri bat egin eben.**

JOKOARI JOKOZ

Begi aurrean dirdaitsu erakusten diguten guztia urre garbia ez dala, ez da gaurko esaera. Eta ez da egi txikiagoa oiñazez bizi diran guztien negarrak ez dirala guregana eltzen. Esan bi auek, txarroan eztia bezin ongi datoz Tito'ren Yugoslabia'ri buruz itzegin bearrean geranean.

Tito buruz, onen aurreko idazkian, Matice Ertvatska Yakintza Bazkun'eko amabi zuzendari atxilotu eta preso sartuak izan zirala genionean, zoritxarrez gertugi genbiltzan egiarengandik.

Dakigun bezela kroata abertzaleeri buruz azterketa sakon bat egin zezatela agindu zuan Tito'k. Azterketa Batzorde onek, Loreil onen 8'garrenean Kroazia'ko Batzorde Nagusia'ri eskatu zion, bidali zitzala «ipso facto» komunisten aldertik, Kroazia'n lendakaria zan Savka Dabcevic Kucar andrea, lendakaritz nagusien artean zegoan Miko Tripalo, baita ere zuzendarigoenetakoak ziran Pero Pirker eta Marko Koprtla.

Kroazi Batzorde Orokorrak, bere eundaogeitamar milla itzezko gutunean baiezten du, alegia, agintari nagusi auek Matice Bazkun'aren eragille ta bizi-emaille gartsuenetan biurtu zirala.

Guk, len aurreratu genuena, gutun onek dio orain. Tito'ren aitortza batzuek babai-dakarzki. Igazko Uztaill'erako Tito ziur omen zegoan «abertzaletasun amorratu» ori zala Yugoslabia'k jazatzen zuan arazorik nagusien ta zaillena. Kroazia'n zeuden serbioak oso arduratuta zebiltzala kroaten abertzaletasunaz, eta jakiñik auen arteko betiko konpon-eziña, serbioak izkilluak eskuratzen asi zirala, gudaketa zibil batean lertzeko zorian. Onetaz, kroaten ixilkako orriak diotenez, izkillu auek Tito'k berak emanak izan zirala, baiñan au gutxi izanik beren abertzaletasuna iltzeko, bera, Tito, berak zuzenean ekin ziola zio oni.

Beraz, Tito'ren esana, Kroazia'ko jakintsuen Matice Bazkuna, egiz kroaten abertzale alkartasun bat zala, eta sendagilleak bezela berak ere gaixorik zegoan zatia labaiñez kentzera zijoala, egintzetan ipintzera zijoan. Aitzaki bat bear zuan ontarako. Eta aitzakia ikasleek Azilla'n egin zuten opor aundi arekin etorri zitzaion. Orduan asi zan emen zizt egin, or ebaki.

Jakintsu edo intelektualekin asita, bere bidetik dijoa. Jaso berria degu Orrilla'k 20'garreneko albistea. Yugoslabia'ko «Tanjug» izpar-emaille dan «Ajentzia»k zabaldutako berria dezute. Zagreb Irrati eta Ikuskizun'eko lendakari izandako Ivo Bojanic, atzo bertan bertatik bidalia izan dala, eta berarekin bertan lan egiten zuten enpleatu mordo bat. Salaketa auxe: «Bazkun pribatu» bat disidenteen eskuetan laga zutela, au da kroaziar abertzale ziran komunista agintaren esanetara zerabilzkitela zabalkunde bide oiek. Idazki asieran aitatutako Kucar orren itzaldi politikoak edatzen zituala. Eta onek Kroazia'ren gezurrezko azalpenak eman.

Politikoa ezezik Tito'k langille arazoa ere berekin du. Ez aaztu Yugoslabia bat dala erbestera, Alemania eta Suiza'ra batez ere, langilleak exportatzen dituan nazioetan, Europa'n bigarren edo irugarren maillan dagoana.

Berri auek gutxi ba'lira Yugoslabia'ko kinka larria azaltzeko, asarre bat badagoala errian argitara ipintzeko, ara beste au: idazki au egiten ari naizenean Yugoslabia eta errusitar «okupanteak» gudasaioak (maniobra militarrak) alkarrekin egiten ari dirala.

Baiñan gaur damaizkitzuten berriak badute neretzat oargarriago dan beste xeetasun bat. Komunisten etsaiak bere eskola ikasten ari dirala adierazten digute, geinbat: Sartu erakunde guztietan —zioten eta diote agintzen ez daudenetan— batez ere abertzaleenetan. Orain berak salatzen dute kaiserki daudenetan, abertzaletasunaren pipia beren erakundeetako burni-zurak arroizen diardutela.

Gai au, ordea, beste idazki batean aztarrikatu nai nuke.

UXOLA

ALKARREN BEARRA

Kondaira norberekeriz betetako keiñadaz aurkitzen bait-da. Alderatzi, ez dira gazteak beti koitasunez beterik arrapakatzailleak izaten. Igarotakoeri begiratuaz, zindotasun aundiz eta bikaiñez aurkitzen bait-dira.

Zindotasunez eta ausarti jokatu dutelako; beren gorbizi guzia onartzekoa ez da. Ez da beren ezigaitz eta biurrikeri guzia gaitzetsigarri. Gizaldietan setatsu ta eragozki zauden oiturak eta zerbait oikerizko sustraiak, aztertzera datoztelako.

Egiazki gazte guziak, gazte ez dira; ta zar guziak zaar ere ez. Ez da egia ere ille zuriak ditualako, oar-ikaspenaren jabe egiten dala. Bestalde, ez da egia ta gutxiagorik ere, berrogei urte baiño geiago egindako eginkari denak, pipiak eta ar-joak, etsitasun baten barnean daudela.

Gaurko mundua gaztediarik gabe eraikitzerik ez dago; ezta ere eragindakorik, berak bakarrik nai dutela-ta apurtu ta suntsitzerik ere, noski. Beraz, gaztea edo zarra izan, erabateko eraskiñegaz oartuaz; gizona da. Ta bearretsi bat gaiñera. Au bai ertsatu-eraziko diogula: maitasunetik eta maitasunez jokatu dezatela.

Argitasun gabeko maitasunaz, ez degu beiñere siñistu. Bestalde, ez degu siñisten maitasunik gabeko argitasunaz. Zaarrek beren biotzetan itsatsirik daukaten idea, naiz eta onartu ez; etzaigu iruditzen zaarren biotzetik, idea ori indarkeriz kentzea. Idea ori iraun-ezari nai zuen anima suntsituaz gaiñera.

Idea bat ezartzeko estu dan pentsamentua, ez daukagu uxatzerik, eta alderatu-erazitzerik; idea oiek, urrengo egunean bizirik iraungo duten ziurtasunik ez ba'du. Orregatik zaar eta gazteen arteko alkar-izketak, garrantzi aundia du, alegia, alkarri entzuteak.

Gizarteko aitzinaldi ta aurrerapenak, alkarren eten-bear eta atezutik sortzen dira. Baiña, beiñere ez, zaar ta gazteak alkarri arrika ekoiztuaz. Bide ontatik gorrotoa ta ikusi eziña bakarrik sortzen dira. Gazteen azaldari ta gorbizi guzia ez da alperrik izan. Baiña bere edo eak zuten begiko ta ikustekoa, ez du du iñork bete.

Beraz, naita ez, alkarren bearra degu.

OSARTZU

ERRIETAKO BARRIAK

Berriz

Opor-aldiak igaro ondoren, oso pozik agertzen naz barriro be idazten gure AGUR asteroko onetan.

Ba-dogu, bai, zer esan gure erriari buruz. Mingarria da, baiña ezin ixildu. Bene-benetan gogoratzen jarri naz, eta aldizkari onetatik agertzen dautsuedaz nire bururakizunak.

Lotsatu egin bear genduke erritar guztiok: zer jazoten da Berriz'ko erri onetan? Nungo Euskalerriko erritan ezagutzen da gure artean ikusten dogun burruka au lakorik? Abade zintzo ta on asko izan doguz bertan; alan be, batzuen eritxiz, guztiak izan dira txarrak. Orduan, nortzuk dira onak? Ala, geu bakarrik onak eta abadeak txarrak? Olantxe ikusten doguz azkenengo urteotan gure erriko abadeak: bat Ameriketako misioetan, beste bat Zamora'n, beste bat Jaungoikoaren besoetan; beste au, barriz, Jesus Liona, barritan oso ona, bai, eta gaur aurrean erabillia.

Zelako abadea bear dogu orduan? Noiz zabaldu bear doguz begiak euskaldunok? Abadeak aurrera bota, eta gu atzean gelditu? Guk arei bultza egin, eta gu etxean gelditu ixil-ixillik?

Lengoan gizon batek inguru onetako abade bati zirautsana: «Zuek, abadeok, argi egin bear dozue berba elizan; agertu emengo zuzenbagakeri guztiak; langillea zapalduta dagoala; ugazabak zapaltzaille utsak dirala, eta abar».

Orduan, abadeak auxe erantzun eutsan: «Guk ori esan bear dogula? Eta zuek? Zuek zer esan bear dozue? Ixilik egon? Mutututa egon? Egizue zeuek be zerbait, esate baterako: langilleak lantegitik urteterakoan, ipiñi egizu mai bat fabrikako ate-aurrean, igo zaitez mai-gaiñera eta berba egizu deadarka zuzenbagekeri guztiok salatuaz. Abadeok beste dozu zeuk be orretarako eskubidea. Egin, ba, zeuk ori. Esan egidazu ori noiz egingo dozun, eta pozik joango naz zeuri entzutera. Ikusiko dozu zer jazoko yatzun. Zer uste dozu, ba? Atzamarra agoan-ta gagozala, ala»? Orduan, gizona aiko-maikoetan asi zan, arpegia gorri-gorri jarten yakola.

Eta, egia esateko, orixe da gaur egunean leku askotan jazoten dana, baita Berriz'en be: besteak dabez erru guztiak, abadeakandik asita. Baiña eurak patxada-patxadaz bizi; jan, edan eta jolas-tokietan ibilli; zirikatu besteak, baiña eurak etxean gorde. Ori da gizon-jokabidea? Ez al da ori; ator-jokoa? Eta satorrak, gaur egunean, neguan bareak lez zabaldu dira gure artean.

Pentzau daigun ondo, berriztarrok, zelako kaltea diardugun egiten gure artean, gauza guztiak naastu, itxuli, ondatu ta ezereztu nairik. Bestetara izan bear dau gure jokabideak: guztiok bat eginda jokatu, alkar banandu bearrean; euskal-oitura onai eutsi, erbestekoen txarkeriak artu bearrean; gure buruak *euskaldun* agertu alde guztietan; euskerazko lan guztiai laguntza emon, diru ta irabazi guztiak geure sakelerako izan bagarik; jolas-tokietan gastau bearrean, euskaljaiak eratu; ainbeste edaten gastau bearrean, AGUR asteroko au erosi ta zeure adiskideai bialdu; euskeraz geiago ikasi, batez be idazten ikasi, «analfabeto» izan bagarik. Eta beste gauza asko *egin*, berba gutxiago egiñik. Naikoa da? Ez; ba-dogu oraindiño esatekorik asko. Baiña itzi daigun ori beste egun baterako.

KARMELE

INSALUS

Urik garbiena ta osasungarriena

Arratia

Euskal-aldizkarien arpidedunik askoren etxeak, irakurgaien illerriak dirudiela ukatu-eziña dogu.

Ateetara datorrenari «Jaungoikoa lagun» ez esaterarren arpidetuten diranak ugari samar dira, edo, dirala diñoe beintzat. Aldiz aldizkoa baiña, poz bage ta otz-otzik jasoten dabe ta, orrialdeak eguzkirik ikusi barik eta begientzat gaixokiña ba-litz bezela, arasa zaarrean metatu, sits eta pipiaren janari biurtu... ordaindu bear danean buruari atz-egin eta sudurra gazitu.

Azalduz dakardan arazo aulakorik ez dau izango euskal-sendiarentzat egiña dan AGUR onek, Zuazo Mari'ren etxean, an, Zeanuri'n, Manterola'tar Garibel jaun txalogarria, Urigoitia, Gorbeatarra ta beste zenbaiten jatorri ta bizitokian.

Irriz eta larriz, pozez eta gosez izaten da Zuazo Mari, astero, AGUR'en zain. Eta orrialderik geienak irakurri ta lanik gogokoenak sakon ausnartu ondoren, pillatu ta metatu bearrean, lobeen tartean zabaldu. Eskerrak, ba, andratxo onen lan apalari ta asmo sutsuari, AGUR'en senitarteko egin yaku Ozerin Mari Anjeles gazte, zuur bizkorra bere.

Eta orain, zeugana nator M. A. Ozerin eskaritxo onekin: Zure izekoak biotz orretan erein dauan azi errikoiaren txingar eta txinpartaz, berotu egizuz adizkide ta ezagunak; ekarri egiazko euskal-landara AGUR-zale ta erri-kutun diran gazte zintzoak, Eskerrik asko.

M. Tere Gereta, AGUR jaio zanetik berbera arpidetua, Bilbo'n izan dan Idazti Azokea begiz arakatuten ikusi izan dogu, Xabier'en eskutik, maite-maiterik, pozez beterik. Eta nik nire aldetik eskeindu neutsoen laguntza ta barruan erabilleen igande-ametsa ondo ta onurakor beteak izan ziralarik, Jaunari esker, guztiak pozez.

Bagilla'ren iruan eta lauan adimenez epelak diranen aldezko jaiak, iñon ez lakoak, Iurre'ko errian. Baiña, bertaratuterik ez neban izan, gipuzkoarrak, arabarrak, naparrak eta bizkaitarrak alkar-besarkatuteko eguna aldi berean izaten doguta. Beraz, luma zoliagoren batek azaldurik, irakurri al izateko zoria izan dagigula.

LANDAJUELA'TAR A.

Caracas

MAX KALAMU'RI.—AGUR'en 30'gn zenbakijan irakurri dot gaur Markiña'n zer lan egiten dan euzkeran aldez, zeuk idatzita.

Markiñarra naz, erri orretan jayoa, naita beti erbestean bizi, baiña orain amabi urte nire errira eldu nintzanian, lotsatu egiten nintzan markiñarra nintzala esaten be, obeto esateko, ain miñ aundija artuten neban gazteak osuan eta nagusijak parra-parra erderia erabiltzen ikusirik... gurago neban nere errijan ez agertu.

Barriro Venezuela'ra urten nebanian, orain lau urte inguru, «Zerutxu» taldea euzkerearen aldez asita eguan, euren ikastolakaz. Origaitik pozgarrija izan da niretzako orain irakurri dotena AGUR'en.

Ez daukat, tamalez, euskeraz idazten oiturarik, baiña orain, txarto edo ondo, pozik nago egiten, zuretzat eta euzkerean aldez lan egiten daben guztientzako.

Urtiak dira, nire erri orretan euzkal idazlari bikaña genduala: «Ete», Elisabet Aginaga- ta ba-dakit bere loba bat andereñoa dala.

Eta izpar orretan agertzen da, Juan Jose Arrizabalaga bat, idazten. Poztuten naz. Praille izan zanaren anaia ete-da?

Artu egizu besarkada bat zeure irakurle dan.

UNTZETA

Tolosa

MENSAJEZ-MENSAJE.—Artista baten mensaje au irakurri degu: «...ere erera baleibu icik subua aruaren...»

Ulerturik bijoakio nere erantzun-mensajea: «...rila chitxoke iro kuren beubeu irrek zili txask...»

ERIOTZAK.—Bi adiskide min, bi abertzale ta euskaltzale sutsu il zaizkigu joan diran egun auetan. Biak AGUR eta «GOIZARGI»ren irakurle aspergabeak.

Nobal'dar Koldobika eta Ormazabal'dar Dunixi'k ez digute geiago itzegingo beren euskera garbi ta ederrean. Beren lagunak izan giñanok gogoratu ditzagun gure otoitzetan.

Jaso bitzate beren sendikoak gure atsekabe laguntza. Eta Jaunak bil ditzala bere betikotasunezko altzoan.

ANTZERKIAK.—Arestian ikusterik aal izan ditugu «Bizia bizi truk» Aizarnazabal'go taldeak emana, eta ondarrutarrak emandako «Mariñelak».

Zorionak talde biei beren lan ederrangatik.

AMALAU ORDUKO IBILLERA.—Aurten ere, beste urteetan antzo, egin da ibillera au. Tolosa, Gaztelu, Uli, Gorriti, Azpiroz, Lekunberri, Iribar, San Migel, Guarda-Etxea, Igaratza, Amezketa, Tolosa'ko, Berazubi'n bukaturik. Goietan 45 zentimetro elurra zegoalako ordu bete geiago luzatu zan.

Lareun bat mendizaletik irureundik gora bukatu. Auen artean zarrena Jose Albero, 66 urteekin. Emakume batzuen artean bost seme dituan emakume batek ere. Batek, Joxe Mari Urkiza'k, bukaturik gero, oraindik izan zituan kemenak pistari jira bat emateko, 400 metro minutu eta amalau segundon.

Toki-tokitan kontrolak eta laguntza taldeak ba-zeuden, batez ere sendakintzarako. Igaratza'n salda beroa eman zitzaieten. Baita Insalus Etxeak, zenbait tokietan bere ur osasungarria eskeiñi, eta pozik edan.

Beraz alde guztietatik garaitz ederra izan zuan.

Soiñak bear du ondo ibiltzeko
osasuna eta indar
ta soin sasoitsu edukitzeko
INSALUS ura edan biar,
onegatikan kirolzaleak
daude sasoitsu ta giar
edaten dunak ura ontatik
ba-dabilke mundu ziar.

UXOLA

Galdakano

ONDATU GAITU.—*Gureak egin dau oraingoan! Adizkide benetakoizat dogun «Abeletxe» bardin gabeak, «Uxola», «Kamiñazpi» ta, batez bere niri —naita kubi batek baiño ule gitxiago euki; auspo batek baizen tximur, eta gurdi-bil zatar baten erruz, mats-orpoek baiño iztar okerragoa, «bapoa» naizelakoan izan nazan arren— itxusiak garela dirausku ta, gaiñera, belarriak moztuko dauskuzala bere bizkarretik barre egin naian gabiltzalako. Ori egiten ba'dauskuk, «Abeletxe», orduantxe bai aurkituko garela, oraingo ule-luze ta katu-bixer banakadunak baiño gizon antz gitxiagokin!*

Dana dala, lagun, idatziten dodan izkirimiri bakoitzeko, gure besarkada maitekor bat euretzat.

ASIKUNDEA.—*Jazokuntza ospetsu bat izan genduan errian, Orrilla'ren 25'gneko gau-nabarrian: amaitu barri daben atseden-baratz barriaren askunden ta, beraz, bere igirikerea.*

Ori dala ziyo, ozteiza andia batu zan inguru orretan. Jai usain pizkat dagon edozein egunetan be, jai atxakiz, notintzak bilduten dirala, ainbat geiago zerbait barria danean.


Atseden-baratz ori egiten eralgi daben txinditza, mordo ederra izan bear dau; zazpiren bat milloi lauerleko, dirauskue. Baiña gauza ederra, apaiña egin dabena. Errian diran beste alderdi baketsuago baten izan ba'litz...

IBILKETA NEURTUA.—*Igaro dogun Orrila'ren 21'gnean, mendirik-mendiko ibilketa neurtu bat ospatu zan Aralar mendidiaren bira osoan. Au da, Tolosa'n urten, alderdi batetik joan eta bestekaldetik etorri. Ibilketa ori, amalau ordukoa izango zala esaten ba'eben be, amasei ordutik gora egin ei-ebezan ibiltariak. Zertarako orrenbeste orduko ibilketak?*

Donostiar mendigoizale bazkun batek antolatua izan zan. Ta, naita gure erritik urruntxu aurkitu Tolosa, joan ziran ara sei galdakanotar gazte kementsu, irukote bi osotuaz ta ibilketa luze ori amaitu be, naita pizkat nekatuta itzuli etxera.

Ondo gertuta egozan seirok, Barandiaran'dar Patxi, Belarrinaga'tar J. M., Eztibes'tar K., Perez'tar J., Arrieta'tar K. ta Sagarminaga, mendigoizale jatorrak, eta orregaitik amaitu al izan eben ibilketa luze ori, naita idazten nagon une onetan jakin ez zenbatgarren geratu diran. Bardin da, adizkide zintzook, lenengo edo azkenengo egin, ez diralako ibilketa orreik zein geiagoka egiten diranak, alde artzeak eta amaitzeak dau garrantzia, ta zuek ori egin dozue beintzat, eta naikoa da. Ikusten danez, gertuta zagozela esan legike, Euskalerri osoari bira emoteko be. Poztuten gara.

BASA-JAUN



Euskal erriko ospetsuak

Zeleta, zar-gaztea

Askok ezagutzen dute eta askok dute maite Garmendia'tar Jon, Zeleta **izenordea ospetsu egin duan jauna. Euskal-idazle, antzerkigille ta izlari sutsua izana ta gaur ere dana. Nork usteko zuan? Arpegi guria du. Gogoz eta biotzez bakarrik ez; itxuraz ere gazte ematen du. Baiña urteak eraso gogorrik egin ezpadiote ere, urrezko eztaietan degu. Berrogei ta amar urte ezkondu zala. Joan dan maiatzeko seian ospatu du egun aundi ori. Zorionak ematen dizkiogu biotzez. Zorionak bere emazteari ere, bien seme-alaba ta billobak aztu gabe. Egun orretan sail eder eta alaitsua egin zuten guztiak edo aita-ama edo aiton-amona zituzten bien inguruan.**

Eguerdi-aurrean meza izan zuten lenbizi, Donosti'ko karmeldarren eleizan. Bi karmeldar meza-emaille. Aita Gonzalo Berasategi, senar-emazteen senidea, Madril'dik etorria, eta Aita Akesolo, bertako karmeldarren nagusi izana. Ebanjelio ondoren, batak erderaz eta besteak euskeraz egin zuten itzalditxoa.

Garmendia-Berasategi senar-emazteak ixillean, senitartekoak beste lagunik gabe, egin nai zuten jaia, baiña askotan, batez ere Zeleta bezain ezaguna ta lagungiña izan ezkero, gauza eziña gertatzen da ori. Eta an zan, esaterako, euskal-idazle trebe AGUR asteroko onen orrietan bertan degun tolosarra, Labaien jauna.

Meza ondoren, senitarteko guztiak egunari zegokion bazkaria izan zuten Donosti-inguruko auzo batean.

Mezakoen artean Labaien jauna aipatu degun ezkero, ez degu aipatu gabe utzi nai beste bat: Nemesio Etxaniz jauna. Ez eta ere, beronek mezako azken-otoitza baiño len, Jauna artu ondoko ixil-unean esan zuan bertsozko otoitz au:

Berrogei eta amar urte
kristau-ezkontza legean;
urtez urte, orduz ordu,
nolako kate luzean!

Alde batetik, JAINKOA,
biotz-zabal, esku-bete;
bestetik lagun maitea,
bidea egiñik luze.

Ainbeste urteren buruan
nork asma zenbat mesede?
Jainko Jauna! Al balitza,
luza katea azken gabe;
iraun beza diamantezko
eztaiak iritxi arte!

.....

Ta gero... Jaunak dezala
ordu eder bat guretzat:
etengabeko zeruan
izan gaitezen Arentzat!

Zer besterik opa dezaiokegu guk bikote zoriontsuari? Bai, bizi ditezela, iraun dezatela zoriontsu urrengo eztaiak arte.

ELI

AMA KANDIDA ETA TOLOSA

Nik ez nuan ezagutu Jesus'en Alabak deritzan monja-alkartasuna sortu zuan Ama Kandida andoaindar emakumezko arrigarri ura. Baiñan nere gazte denboran askotan entzunik nengon Ama Kandida, familizenez Juana Zipitria izan zanaren ixtori, gertakizun eta goraberak nolakoak izan ziran.

Jaiotzez andoaindarra genduala aitatu dizuet, oso gazterik ordea Tolosa'ra bizi izatera etorria. Ez noakizute Joanatxo neskatxaren gañerako ibillera guziak aitatzera. Luze joko luke emen eta erbestean eta azkenik Salamanka'n santu-gisa, il zan bitarteko berri zeatzak ematera. Ez! Berri auek edozeñek dakizki nik baño obeto. Euskeraz oso ederki Iñaxi Munita Jesus'en alaba argidotarrak agertu zizkigun bere liburu mamitsu: IZAR BATEN DIRDIRA deituan.

Aski dezute irakurtzea ta pozik eta aseturik geldituko zerate. Bai, benetan AMA KANDIDA gure zeru goibelean izar dirdiratzaille izan zan.

Nexka koskorra zala amonarekin Tolosa'ra bizi izatera etorri zalarik D. Martín Barriola orduan Arramele'ko Misericordi-kapellau zegonarekin ezaguera egin zuan. Apaiz au izan omen zuan lenengo aitor-entzule. D. Martín ori gerora Anota'ko erretore izendatu zuten eta onek zuzendu zuan Juanatxo santutasunaren bidetik urteen buruan AMA KANDIDA izatera iritxiaz.

D. Martín apaiz zar-zarra iñoiz ikusi izan nuan eskola-mutil nintzala eta Ernialde'ko bentaruntz egurastera ginjoazelarik. Oso aguretu ta makurtua zegon garai artan. Apal eta umilla sotana zarpaildu batez jantzia. Antxe Anota inguruko bide artan oi zebillen brebiariko otoitzak errezatzen. Santu otsa zeraman; eta neskatxa andoiandarra ez ezik beste zenbait konbentura bidali edo monja-gaitzat aukeratzen ba zekian. Jainkozale gizona bait zan eta Tolosa guzian itzal aundiz eta errespetoz begiratzen zioten.

Urteak aurrera joan ziran eta Jesus'en alabak AMA KANDIDA'ren agindupean Tolosa'n lenengo ikastetxea idiki zutenean D. Martín Barriola'ren itzala gañean zebilkion eta beste laguntzaille berri bat; andoindarra ain zuzen D. Patrizio Orkaiztegi, arkitu zuan bertako apaiz nagusi. Eskola berrian, aurrak ez ezik neskatxa langille ta neskame ta andereñoak emakumezko kristau eziera ta bizitzarako ikaskizunak, mailla guzietakoak, nun bereganatu egokiera izan zuten. Artean ez bait zan aukera aundirik nexkatxentzat. Eskolapioak mutillentzat ain oparo egiten ari ziran lan ederra, Ama Kandida'ren Jesus'en Alabak neskatillentzat gauza bera egin nairik abiatu zitzaizkigun. Eta era ortan jarraitzen dute Jainkoa'ri esker. Orregatik Tolosa'ko erriak bi ikastetxetako monja-apaiz diran maisu-maistrai eskerrona zor diote.

Ama Kandida zanaren arira itzuliaz, norbaitek galdegin dezake: Nola diteke, ordea, erderaz ez zekian emakumetxo xume ta beartsu batek arrigarrizko langintza artan jardutea?... Jainkoa'k artarako doaiak eman zizkiolako noski.

Buruz argi, borondatez sendo, ta biotzez zuzen eta sutsu izan zalako. Aren gurasoak Juanatxo alaba maitea ezkontzea nai izan zuten; baiñan Goiko Jaunak aukeraturik zeukan, ta bear zituan almenak eman zizkion. Langille xea izan, basarritar, nekazari arrunta bat euskaldun uts-utsa adimen eta gañerako doaiez ondo ornitua aberaskume ta jakituri itxurazkoak garaitu-ko ditu. Eta au gertatu zan Juana Joxepa Zipitria andoindarra, langille beartsu batzuen alabarekin... «Berrospe» baserri etxean sortua.

Gaztediari edukazio egoki bat eta etorkizunerako eskola on eta lanerako trebetasuna erakustea arazo zailla beti izan oi da. Are eta geiago orain bizi geran aldian. Gaurko egunez gurasoak buru-auste gogorrak dituzte seme-alaben eziera aurrera eramaten; munduko burrukan atzera geldi ez ditezen. Irakaskintza kontu ortan lege berriak dabiltza eta aldaketa aundiak. Ixtudioen aldetik eta errelijioaren aldetik ere bai. Eliza katolikoa eta kristau guziok kezkaturik gaude.

Ama Kandida'k orain eun urte 1872'n bere «*Jesus'en alaben*» eskola emailleen alkartasuna eta lagundia sorturik utsune aundi bat bete zuan neskatxentzat ikastetxeak zabalduaz. Eta gaur edaturik daude ez emen bakarrik, lurbira osoan baizik. «*Eman eta zabal zazu munduan frutuo*» elburu bezela arturik daukagu «Gernika'ko Arbola'n. Baiñan ez gaitezen etxe-kalte izan besteri eman gurei eutsi gabe.

Euskal-Errian Jesus'en Alabak ikastetxeak ba dituzte; bai Andoain, Donosti, Tolosa, Azpeiti, Iruña, Bilbo'n eta abar.

Siñismen eta kristau fedeaz gañera Euskera ta gure erriko kultura zaindu dezatela Inazu Munita Ama bioztun eta aztu eziñak zaindu zuan bezela.

Ama Kandida bizi ba'ledi espiritu berbera izango ote lukean nago.

Bidezko da, beraz, eungarren urteurren ontan (1872-1972) aren oroimena ospatu ta jaitzea. Andoain ezik Tolosa ere ez dedilla motz gelditu.

An sortutako azia emen landare mardul egin bait zan.

ANTONIO M.ª LABAYEN

ASTARLOA'TAR PABLO PEDRO

Abadea, euskera-zalea, 1752'gnean Durango'n jaioa zan. Latin eta Elertia bertan eta Filosofia Oñati'n ikasita gero, eleiz-gizon bizibidea artu eban, eta Orde nagusiak artu ondoren Durango'ko eleiz batuetan geratu zan.

Jatorriz ikasien artekoa zan Astarloa, bere aita Erreiñu-batzarreko lege gizona, jaun andi orreitakoa, ta ama, Agirre'tar Maria Anjela, markiñarra. Laster, sermoietan, bere ikaste zabal, sakona ta adimen argia egertu ebazan. Baiña, a zan bere euskera-zaletasuna!... Berbaldi guztiak euskeraz. Danak entzuten eutsoen pozez beterik. Inguruetatik be, ain zentzudun ikasbide ta irakaskintzak entzutera joaten yakozan.

Ogeta amar urte ebazala, Agurtza'ko Andra Mari'ren kapellau, eleiz erretore izendatu eben. Aldi aretan, langintza ori garrantzi aundikoa zan, ta Astarloa'k abade, jainko-gizon izatea, alegiñez ta arduraz, beteten jardun eban.

Geure izkuntzaren, euskererearen ezagupenetan gorengo maillare eldu arte berezitu zan. Maitasun sutsuaz, orren sortze ta erakundea azterkatu ta jakiteko lanari ekiten eutson, gau osoak igaroz egun senti ta onen argiak jo arte. Gurari, zaletasun oneik, andiago ta sutsuagoak egin yakozan, 1800'gnenan, izkuntzalari ospetsua zan Gillermo Humbolt, Madril'era etorri zala jakitean. Onek, izkuntzen sortze ta izatearen azterketak obeto ta sakonago egitearren, Astarloa aukeratu eban. Joan zan, ba, Madril'era. Abegi ona egin eutsoen an egozan errikideak eta eurakandik oneriste agiriak be artu, jermandar jakituna Madril'en zan bitartean.

Aspalditik idatzita eukan idaztia «El arte de aprender el vascuence» agertzeko gertatu zan, baiña orduantxe Madril'eko Edezti-zaingo'ak «Diccionario Geográfico Histórico de España» a argitaratu eban.

Biltzarkide nabarienak, Naparroa'ko erreiñua, Bizkai'ko jaurerri, Araba ta Gipuzkoa'ko eskualdetzaz iñarduela mintzatutakoa ez eben ondo asmatu, batez be bigarren atalean, Naparroa'tzazko itzetan, akademitar Joaquín Traggia'k, euskera izkuntzaren jatortasun ta antxiñateaz, griñaz eta itsu idatzi eban. Idazkai onek. sendipen latza eragin eban euskaldunen artean, eta Astarloa'ri eskatu eutsoen erantzun, guzurtu ta ezeztu egiteko.

Durango'ko abade zintzoak, egikizun arduratsu au onartu eban, ta laster ederto egin be. Urrengo urtean, 1803'gnean, bere liburu eder-ederra dan «Apología de la Lengua Bascongada o Ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre las que se conocen» argitaratu zan. Idazlan au, danak onetsi ta aintzatu eben. Baiña arerio motzak idatzita, euskal endaren aurka irain-liburu «libelo» bat egin eben.

Astarloa'k beste liburu bategaz erantzun eutsen. Gero, durangoar ospetsu onek, «Discurso filosóficos sobre la Lengua Bascongada» idatzi eban. Idazti guztiz nabarmen au, galdutzat emona egoan, baiña alango baten, norbaitek, Aldundiari ekarri eutson, eta Batzar Nagusiak argitaldu egin bear zala erabagi, baiña ez zan argitaratu. Askoz geroago, 1883'genean, idazti-egille batek, Aldundiaren laguntzaz argitaratu eban.

Beste oneik be itxi euskuzan Astarloa'k idatzita: «Arte extenso», «Plan de Lenguas», «Gramática Bascongada en el Dialecto Bizcaino», «Diccionario de apellidos», «Diccionario geográfico», «Proyecto de Vocabulario Bascongado», «Colección de adagios bascongados». Idazlan zazpi oneik ez ziran argitaratu. Batzuk amaitu barik eta beste batzuk galdu zirealako. Geratu ziranak, Bizkai'ko Aldundiko idatz-tegian dagoz.

1806'gneko Bagilla'ren 2'gnean, 54 urtegaz, Madril'en il zan, txiro-txiro, Astarloa.

Euskaldunontzat, bere izena, jakitun izkuntzalari ta euskaltzale andienetarikoa izango da beti. Durango'k, bere erriak, ez dau aiztuta itxi: Carrara'ko aitzurdiñez egindako Astarloa'ren giza-irudi ederra agertzen da toki argi agirian, danak jakin dagien Astarloa illezkorra dala,, eta «euskaldunen artean guztiz maitatua».

LETONA

zear bidetik

Gerhard Schröder

Sartaldeko-Alemania'ren antziñako ministro izana. Alemandarrak, Txino'ekin izan dituzten artu-emanak, beti aintzakotzat eduki izan ditu. Pekin'era joateko eskeintza irrikatu izan dularik, Pekin'go ikustaldiak, Alemania'ko Ostpolitik eta Ipar-Amerikak, Txina'rekin artu duan bidearekin, zer ikusirik ez dauka. Urte bat leenagokoa bait'da.

1964'go urtean, Schroder ministro zala, Bonn'ek, Pekin'ekin eduki zituzten artu-eman ixillekoak, Txino'ak Berna'n zuten ordezkariarekin eratutakoak ziran.

Artu-eman oiek, noraiño iritxiko ziran? Ez da erraza galdera oneri erantzuten. Dakiguna, auxen da: alkar-izketa oiek, Lyndon Johnson Ipar-Ameriketako lendakariak, aginduta, galdu zirala.

Ordudandik, Bonn eta Pekin'en artu-emanik ez da izan. Schroder, Txina'ra deitzeak adierazi nai du; etorkizunari begira, sartaldeko-alemania'rekin, jokabide onuragarriren bat artu nairik dabiltzala.

Schroder'ek, gaur-eguneko Alemani'ko agintariekin zer ikusirik ez bait'dauka, ta erantzunkizuna ez da aiñ garrantzizkoa. Gizon onek, laterri-komunistekin emandako urratsak, artu-eman geiago izateko izan diranez, Txino'ak gogoan dituztela, esan bearrik ez. Ongi-asko dakite, Rumani'arrekin izandako alkar-izketak; leen atzeratuak egon ba'ziran ere, berak zuzenduaz bide onera ekarri zituala.

Bonn'go agintariek, ez dute aiñ sutsu artu. Schroder izena ez bait'dute geitzen nai. Gora-beera auetatik at, lege-bilizarrean, Moscu ta Varsovia'ko itunpenari buruz, eginkizun dizdikor eta argitsua egin bait'zuan.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

AGUR

III URTEA
44 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - BAGILLA - 24

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Langailluak

Langailluak lana erreztuteko gizonak asmau ditun tresnak dira, makiñak.

Onetan gizona beti ibilli da asmakizunak ateraten. Nork nai ez, lan errezagoa eta ondoren ugariagoa? Baiña lenengo tresnetatik asita, egin daigun txirriña izan zala, gaurko langailluetara zelako aldea! Onetan gaur egin diran aurrerapideak siñistu eziñekoak eta sarritan bildurgarriak dira.

Eta, zori txarrez, gizonak bere onerako asmau ditun tresna oneek, sarritan, bere aurka datorkoz. Zenbat eriotza bide zabaletan edo lantegietan, zenbat gizon berebilpean edo tresnapean zatituta, odolutstuta!

* * *

Baiña gizonak asmautako tresna oneek ba dabe ori baiño ondoren txarragorik. Gaur be bai, baiña kondairan ugariago. Ez tresnen erruz, gizona bera berekoia izan eta tresnak bear ez dan lez erabilli ditulako baiño.

Langailluak agertu ta laster gizon asko lan barik geratu ziran. Tresnak gizon askoren lana egiten eben, eta ugazabak lanerako orduak gitxituterik ez eben nai, eta, jakiña larriune sakon bat sortu zan. Gaur berton jazoten da ori eta geroago ta geiago jazoko da. Orduak gitxituez joan bearko dabe, baiña orretarako, berbaz egin bearreko gauzea izan arren, gizonen burrukea bearrezkoa izango da.

Baiña ordu oneek gitxituten diranean, gizona beste gai batzuetarako askeago geratuko da. Orregaitik, gizonarentzat beste ardura batzuk bearrezkoak izango dira edo bere ordu askeak galbide izango jakoz.

* * *

Tresna obeek aberastasunak ugaritu dabez. Baiña noren onerako? Eurak agertu ziran ezkero, langilledia, jentetza lez, ugaritu egin da eta ondasunak gitxiren eskuetara batu dira. Domuzalekeria, kapitalismoa, indartu egin da. Txiroak txiroago ta aberatsak aberatsago egin dira. Ezbardintasuna sakonagoa da.

Egia esan, lenago baiño obeto guztiok bizi gara. Baiña ori ez da pozbide aundirik. Anaitasuna ta bardintasuna zaurituta diran artean, ez da gizadi ona aurrean agiri jakuna.

* * *


Tresna barri oneen ostean, eta lantegi aundien indarrez sortu jakun gizarte barri au obetuteko bidea ez da domuzalekeria, gizarte-zaletasuna baiño. Eta lantegi aundiak, tresna aundiak, gizarteratuak izan bear (zosializatuak). Ez da beste biderik ikusten gizonaren berekeria alboratzeko.

Irakaskintzarako egin dan lege barrian gizarteratze-gurari antzekoen bat agertzen da. Baiña zergaitik lenengo irakaskintza-arazoan? Eta zergaitik ia orretan bakarrik?

Gizonen arteko bakea egiteko arazo oso gatx bi, gitxienez, agertzen jakuz. Agintaritza - arazoa ta dirutza - arazoa (ekonomia). Biak batera zuzendu bear. Tresnak eta lantegiak gizarteratzeko, gizarteko arduradunetan geure ustea izarri bear. Eta nogan geure uste ona izarten dogu? Zeintzuk izango leitekez ori lortzeko bide zuzenak?

Bide luzea dago ibilteko, baiña gitxienez norantza jo bear dogun gogoratu daigun eta arantza al doguzan oinkadak emon.

AGUR



ARALAR'EKO MIKEL DEUNA (Aida argazkiak)
Oporraldian ezagutu gure errial

Aralar'etik Kezkatsu

Lengo egunean apaiz adiskide batekin topo eginda, esan zidan: «Ba al dakizu Diputazioari eman nai diotela San Migel'ko ostatu berria? Ori egiten ba'dute, galdu da San Migel».

Nunbait, orain dirala egun gutxi, Iruña'ko gotzaia, bikarioak eta pastoralaren buru diran apaizak bildu dira. Geienak, elizak ez duala ostatu berriakin zer ikusi, omen zioten, eta uztekotan daude. Etxe ori asko kosta dala eta ortarako ez dagola dirurik. Gero, gaiñera, gasto aundiak izango dirala eta ez dagola zorretan gelditzerik. Elizak ezin dula jatetxe batekin artuemanik izan.

Itxuraz arrazoi aundiak dira. Baiñan elizak ostatu ori utzi ezkero, ze gertatuko litzake? Naparro'ko Diputazioa eskuz aldatu leike ta elizaren etsaiak nagusitu. Diputazioaren eskubideak Madrid'ko estaduak artu ditzazke ta orduan, San Migel'en, ze giro izango genuke? Kontu aundiakin ez ba'dabiltz Iruña'ko elizaren buruak, ostatu ori Troia'ko zaldia izan leike, San Migel'ek daukan kutsua galtzeko. Oso errex artu lezake San Migel, ostatulari batek ta, jakiña, orduan eliza ori negoziu pean izango litzake. Janaria, edaria ta lasaikeria aurrena, ta siñismena, nun?

Naparro'ko elizaren buruak, beren ustez, erabaki egokiak artu dituzte, geroago txarrenak izan ditekenak.

Eliz gizon oiek aztu ezin dutena, gaiñera, San Migel erriarena, Euskalerriarena dala. Onekin asko esan nai degu. Gure erriak, San Migel'era igotzen ba'da, siñismenaren bitartez egiten du. Ez orain bakarrik, aspalditik baizik. Orregatik, elizak, siñismenaren giroa zaindu bear luke San Migel'en. Obispaduak ezin ba'du ori egin, utzi dezala eliza ta tokia Lazkao'ko Beneditarrei. Oso pozik artuko luteke eta siñismenak ere irabaziko luke. San Migel'ek danen aurretik, otoitz lekua izan bear luke. Ezin leikena toki ori «parador bat» izatea da. Utzi ezkero, «sala de fiestas» baten biurtuko da.

Gai oneri buruz, Euskalerriak erabaki bear luke ta ez Naparro'ak bakarrik. San Migel Euskalerriena da. Orain arte, gipuzkoar eta bizkaitarrak, naparrak baiñon geiago igotzen dira San Migel'era. Euskalerriko kristauak, San Migel'eri buruzko beren asmoak, Iruña'ko eliz-barrutira bidali bear lituzke. Ez litzake gaizki izango, gaiñera, gai oneri buruz izparringietan idazlanak agertzea.

Orrelako gauzak gure artean gertatzen dirala, ezin gera lo egon. Naiko gauza eder galtzen ari gera euskaldunak eta ba-da ordua gu ere zerbait egiten asteko. Alkartu gaitez San Migel'ek daukan giroa zaintzeko, eta zerbait egin dezagun. Ba-dakit gipuzkoar eta bizkaitar askok oso miña duela San Miguel.

Aralar'ko San Migel'ek siñismena zuzpertzeko iturria ta otoitz lekua bear du izan. Ostatu berria ortarako zuzendu bear luteke. Elizak, an, giro ori sartzen eta sortzen jakin bear luke. Elizak, besten eskuetan utzi ezin ditun erresponsabilidade batzuek ere ba-ditu.

LATXAGA

Apurtzailleak

Denpora asko ez dala, «apurtu aditza gaztea da» irakurri gendun Mungi'ko gazte batzuk argitaratutako erderazko «folleto» baten. Nere ustez, aditz ori ez da gaztea, erreza ta ganorabakoa bai. Edozer gauza apurtzeko ez dago burua larregi ausi bearrik. Or dozue, adibidez, Migel-Anjel ospetsuaren «La Pieta» ezagunari jazoa: gizaldiak zear gorderik izan dan erti-lan ederra, zoro batek, maillukada bigaz ezereztuteko arriskoan.

Beste orrenbeste esan geinke gure euskereari buruz: Gizaldiak zear erriak gorde dauan nortasungiltz egokiena, bere bizitzako larri-unerik aundienean dago, sasi-jakintsu batzuem jarraitzailleen erruz... betiko galzorirako bidean.

Borondate onenagaz be erratu geinke, zelan ez! Baiña, tamalez, kaltegarrienak beste oneik dira: «Etsaien kutxatik gure gauzak apurtzeko dirua, baimenak, edo «egiten izteak» lortzen dituenak. Olakoen jarraitzaille zintzoak ikusteak kezkatzen gaitu gu; zar naiz gazte, ezjakin naiz oinkadarik atzeruntz egin nai ez daben jakintsu arro edo itsuak. «Vasconia» idatziaren eskutuko egilleak, Krutwig'ek, apurtu aditz «gaztea» edonun erabilten du: gizartea, alkarteak, lenagoko errizaleak, bizien eta illen izen ona galdu erazo naian. Baiña okerrena, euskerea bera, iraultza gai bezela artzen da.

Iraultzarako, aurretik egindako euskerazale on askoren lanak apurtu bear ziran, eta gero, bere errota-arrotzera urak eroateko, derrigorrezkoa eban, erdera guztieri ateak zabaltzea. Euskera erderatu orren eragiñez euskaldun gizonen euzko-gogoa Mokoroa edo Oteiza lakoen euzko-gogoa) makaldu ta apartuko ei eban, eta ori bear zan erdal-gogoa, gizon internazionala lortzeko. Jokabide maltzur oneri gure arteko ainbatek jarraitu dautso. Eurok igarri «barik», euskal soiñekoak erantzi dabez, eta billosik dagoz orain beste mundu barri orretan... baiña pozik! Orain, eurak, aurreratuak ei-dozuz. Olakorik! Eta emengo erderazale amorratuenen «intzentzu» emoille ta morroi egin jatsuz.

Onetariko erderazale bat oraintzu, gure zuzendariaren aurka agertzen da. Sei edo zazpi bider irakurri ondoren ulertu al izan dogu (dana ez baiña) bere «euskeranto» lanaren esan naia: gure aldizkari oneri betiko «lorak» ezarri ondoren, gure zuzendaria nabarmendu nai du. Len be iñoiz esan izan dogu baiña; Jaun orrek zuek uste dozuen baiño askoz geiago daki euskal-kultura arloan, eta ain «jakintsu» agertzen diran bat baiño geiago ikusi nai neukez kultura orri buruzko eztabaidan.

«Enciclopedia Vasca»ri erdal editoriala deitzen dautse... barregarriok! Jakin nai neuke zeiñek egin daben, euskal kulturaren onerako, lan ederragorik! Orren truk dirua irabazten dala? Eta gal-zorian ipinten dana? Erderazkoak ei-dira idazti asko, baiña ez ete-dira zoritxarrez askoz geiago euskerea ez dakiten euzkotarrak? Ala beste «euskeranto» editorialak argitaratutako mordoillokeriak ulertu eziñik ibilli bearko ete-gara?

Bat baiño geiago gora-goraka jarri arren, naiago ditut erbesteko idazleen lan batzuk euren erdera ederrean irakurtzea, Txomin del Regato'ren antzeko «erdera batuan» baiño. Olantxe dago gure mundua mutillak! Españia'ko lau izkuntzak jakiñik, «gizon ospetsu» diran erderazaleak, gaur, errizaletasunean abiatzeko guri irakasteko asmoan! Bada ez badazko auzi-zalapartekin (adiskide obarik aurkituko ete-leuke erdereak) euskera ulertezin edo erderatuakin ao zabalik dagoz asko; «justizia, oestea, lestea, sufizient, proletargo» ta olako itz askorekin lilluraturik!

Ez gabiltz, ez, gu, «Erromako Eleiza Santua etsaietatik defenditzen», bearra izan arren. Gu, gure indar apurrarekin. Euskalerriaren nortasuna ardi-narruz ja tzirik agertzen diran etsaiengandik defenditzen alegintzen gara; ta ez dakigu gorriz apaindurik dabiltzan asko, zuri, urdin edo baltzen alogerako morroi ez ete-diran.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

ELEIZA ta ELEIZ-GIZONAK (III)

Eleiza, Eleiz-bezela, ez dala iñoiz euskerearen aurka egon naiko argi jarri dotala lengo idazkun bietan uste dot. Ori ikusten ez dauana edo itsu dago edo ez dau ikusi nai. Baiña zer esan eleiz-gizonaktzaz?

Itaun oneri erantzuteko, lenen-lenengoz jakin bear doguna auxe da: nortzuk diran eleiz-gizon izenpean datortzanak. Izen orregaz Eleizan zuzendaritza naiz irakaskintza dauken gizonak adierazten doguz, eta ez Eleizan gizon arrontak diranak, naiz ta onek be Eleizeak ondo maitatuak eta kutunki begiratuak izan. Izan daiteke gizon ta emakume arront oneik Jaungoikoaren aurrean besteen goitik egotea; baiña emen guk darabilgun asmorako besteak dira Eleiz-gizon deituten doguzanak. Beste bide batez esango dogu, izen orregaz jaupari edo apaiz, gotzain eta doipuru edo Aita Santua adierazi nai ditugula.

Jatorrizko izkeraen aldez len izentatu nituan Doipuruak euskerearen aldez be egon zirala ukatu eziña da. Euskerea beraxegana maitetasun ta zaletasun bedegarrik Doipuru-artean euki daunik ezingo neuke emen baiki emon; baiña XXIII Jon izan zanaren izena jarriko ba'neuke, ez dot uste iñork oker nagola esango leustakenik. Jakiña da Jon orrek, Roncalli janzkordun zala, Laboa jaunarekin eukan adizkidetasuna, eta, Laboa zan euskaldun zintsoa zala-ta, maitetasun ori nundik edo andik, nun edo nun agertuko-edo zan. Baiki dakidana beste auxe da: Roncalli janzkorduna Doipuruaren ordezko zala eta Paris'en egoala, Euskalerriko auziak eskuartean erabilzenak, bere bidez joten eban Roma'ra. Bein Agirre zanak idazkun luzetxu bat eroan eutsan Doipuruarentzako. Lenengo atala irakurri eutsanean, Roncalli'k eskuak zabalduz: BENE! esan eutsan. Bigarren atala irakurri eutsanean: MOLTO BENE! eta irugarrena amaitu ebanean, BENISSIMO! biribil bat emonaz idazkun guztia ontzat artu eban. Au Joseba Andoni beraxek neuri esanda dakit; eta zintsoa zala guztiok dakigu.

Baiña utzi dagiguzan albo batera Doipuruok eta gatortzan Gotzaiñakana. Len izentatu neban Lepe jaun ospetsua, euskotarren gotzain zalarik, itzaldiak eleizetan euskaldunentzako euskeraz egitea agindu ebana; oraintsu or euki ditugu euskera-alde egon diran Muxika ta Bereziartua ta batez be Iparraldeko Gotzain St. Pierre euskeraz ta euskera-alde askotxu idatzi ebana. Bizi diranen artean agirian da gure Zirarda'k eta Argaya'k eta Larrauri'k eta Tabera Araotz janzkordunak euskereari agertu dautsen maitetasuna. Guztion artean Tabera Araotz nabarmenduko dot. Gaztelerriaren biotzean jayoa da; 1923'gn urtean ni Gazteiz'eko goterkitik erbestuta nengoala eta Zafra (Extremadura)'n urtziztia irakasten nebanean neure ikasle izan zan, Araotz abizena maita ebala igarri neutsan eta Iruña'ko Gotzain izentatu ebenean Inglaterra'tik idatzi neutsan zorionak emonez Araotz Aba Iruña'ko Gotzain zalako. Laster agertu eban egiz bere amaren odola maita ebala.

Gotzaiñetatik jaupari edo apaizetara etortzen ba'gara zer esan? Emen bai-doguzala euskera-aldezko eleiz-gizonak. Etxepare'tik Laffite'raiño, Larramendi'tik Lekuona Imaniol'eraiño, Astarloa'tik Gallastegi'tar Kauldi ta Manterola'tar, Gabirel'eraiño bai-dogula erreskada edarra! Agur *asteroko onen ingoski guztiak betetzeko beste euskel-idazle on eta kementsu! ...Eta euskera-aurka? Gaurkoz naiko.*

URRUTIA'TAR GOTZON

iraulza ala iraulketa

Ez dakit itz au nok sortua datekean, baiña aspaldi onetako irakurgaietan ugari aurkitzen dogu.

Guk, geuk, matxiñadea esaten izan dogu, beti, baiña polit eretxi edo, *iraultza* darabille, orain, idazlerik geienak.

Ez dot uste, *iraultza*, itz zaarra datekeanik; nik neuk ez dot iñun entzun izan, beintzat; ez eta irakurri be azken-aldi onetararte. Azkue'ren iztegiak bere ez dauko, ba. Iruli (irauli) bai erabilten dogu, baserrietan: burdia irauli ta abar, zeozer jausi ta azpikoz-ganera jarri daitenean.

Orain urte batzu Urkiola'ra osterea egin neban, oiñez (egun batean joan eta bestean etorri, kanta zaarrak diñoanez) eta Oizmendia-zear Garai'rantz niñoiala, an, mendibarrengo, burpide baten, iru-lau burkada ira, bata bestearen jarrai, ikusi nituan iraulten. Aixe bai ba-zala benetako iraulketea; baiña, ez, gero, *iraultza*, burdi asko irauli ziran-arren.

Ez deritxat txarto *irauli* itza matxiñadea adirazteko, au, matxiñadea, erderazko *motín, rebelión* azaltzeko itxi-ta; baiña, bai, *tza* atzizkiaz ornidu-ta *iraultza* atontzeari.

Tza atzizkiak, gauzen izenai ezarri-ta, ugaritasuna azaltzen dauzku; ta ez egitadea. Izakizuna ta egikizuna bere bai, batzuetan, baiña egitaderik ez. Matxiñadea egitadea da, ta, egitadea danezkero, egitadea azaldu edo adirazi daikean atzizkiz eratu bear.

Keta dogu, ba, egitadea azaltzen dauan atzizkia. Beraz, *iraultza* barik *iraulketa* izan bear, zuzen izateko.

Izana izan dala, itz onen atontzailleak ez dau izan eukal-sen andirik: Euskaldun barria, urrean!

Au, autuan dabiltan itz au, aurrez darabille, idazlerik geienak, txarto ala ondo atondua dan oartzeke, ta aspaldion izan dot azalpen au egiteko asmua. Asmu au gogoan nerabillala, AGUR onen 38'gn. zenbakian irakurri izan neban, orraitio, bein! itz on ondo idatzi-ta: *iraulketea*, «Orixe ta Euskera-Batasuna» idazlanean: «Prantzia'ko iraulketeak ainbeste uts...», geure erritarra dan Oar-Arteta abade jaunak idatzi-ta. Onek, jaun onek, bai ba-dau euskal-sena ta guztiak txarto darabillen-arren, izparri edo dana dalako ori, benetako izakerara *irauli* dau.

Eskerrak, ba, biotzez, Jose A. jauna, errikide da adiskide on orri, aldi onetan askok, ago-miñean eta idazkortz muxturrean, marxismu-sundeaz-edo, darabillen itz on buruz asmu bardiña izan dogu-ta. Itz on atondu dauana be gure Aiengiz maitagarrian iaio ta azia izan izan ba'litz euskeraz ondo jakingo eban, eta *iraulketea* esango eban, zigur, eta ez *iraultza*.

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN

POKA ETA KEZKAK

IGESKA.—Ez dogu oraindik Michelena, Luis'en liburu barri ori irakurri. Aita Mokoroa'ri mingor, eztena sartzen dautsola entzun dogu, ez baiña egiaz edo arrazoiz baliaturik. Bego au beste egun edo toki baterako. Oraingoan, Z-A'n argiratu daben alkar-izketari buruz natorkizue: Michelena jaunak erbia dirudi, lur labanean jausi nai ez da, igesi lurrunean estaltzeko.

* * *

GORA PARDELAK!— Ona emen bere erantzunetatik bere iritzien laburpen batzuk:

«Oraingo idazleak lotsa galdu dutela» ta «dotoretasunaz gehiegi kezkatu gabe» lenago bakanda erabiltzen ziran gaiak gaur «ausarki darabiltzate». Michelena'k lengo errizaleen lokarriak astunak aurkitzen ditu, aurki, ta gaurko gazte batzuen ausartasunak azkatu du bere arimea... ori argi dago bere jokabidean.

* * *

GITXI BAIÑA DUAKOAK.—Erriaren aoan, ariman, gure izkuntzea atzera doa... baiña Michelena'ren iritziz «literatur hizkeran» aurrera! Euskalerrian zenbateko «edizioak» egiten diran dakigunontzat... etorkizun zoriontsua! Errian izkuntzea galtzen ba'da, norentzat «optimista» izaten diran bi milla aleko argitalpenak? Baiaña, orrek, «intelektualengan» du bere itxaropena.

* * *

BAI BAIÑA EZ.—«Batua» dalako laprastadan «daramagun lasterra neurtzea ez da erraz». Ariñegi? Astiroegi? Igesik erantzun ezkero, burduntzirik sartu ez ta, iñor asarratu ez... baiña ausartak lengoan, eta Michelena... buruan!

* * *

JOANAK JOAN.—«Hemengo zaraten oihartzunak» erantzun ondoren, Michelena lengotan dago: igeska. Ez uste izan errizaleok «gure asmoak, geurok darabiltzagulako, artezak eta zuzenak» diranik. Ba'liteke, baiña, beste orrenak be zuk ezagutzea, baiña «zinaren» indarrak edo lurrunaren zorabiakeriak, Luzear zanaren eta ziran beste askoren irakasketak, aztu eragin dautsuez.

* * *

BIGARREN EKIÑALDIA.—Bergara'n, aldizkari batekoak eratuta, idazleen batzar bat egin da. Gaia: idazleen arteko ELKARGOA barriro sortu-araztea. Lengoak, bere elburua lortu ondoren, au da: «sorterazi zuen helburua lortu bezain laster»porrot egin eban. Zein eban elburu? «Batu» ezizeneko euskerantoak sartu erazotea. Lortu ei-da... Nortzuk izan dira maiko buru edo mai-erdiko? San Martin eta Lizundia ezagunak, Euskaltzaindiko idazkaritzea osotzen dabenak. Ba-dakie orain irakurleak, idazkariak nundik nora datozan eta nungo aizeetatik artzen daben arnasea. Guk baiña, orren aizeentzako euskerantozko «mascara antigasak» daukaguz.

PIPER-ZIRI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendati ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

ULER GATXA II

Aldizkingi onetan, beiñola, agertu neban HIT PARADE-dala-ta lantxo bat, berton neure eretxiak azalduten nebazan, beste edonork agertu leikezean lez eta HIT itzean agertuten zan H, dala-ta, idazten neban AGUR'en H ori bai zala tamala, ba, aspaldion, «iñongo teilletura arrika ibilli» H gora-berako arazoekaz eta norberen «etxean erabiltea, ori ulergatxa zala!

HIT eta PARADE itz biok englandarrak zireala eta bear-bearrekoa zala geure izkuntzean idaztea eta ez erbestekoan, AGUR aldizkingia Euskeraz agertuten dan ezkero egokia zala, batez ere idazpuru edo izen, lan-buruak edo idaz-lanaren buru nagosiak Euskeraz izen izatea, txarto esan da ete dago ori?

Idazlan orretan adierazoten nebana, baten batzuentzako ez da errazа izan ulertutea, ba, idazki baten bidez diñoste:

«Zer dozu idaz-lan orren aurka?» Nire eretxiak ez ziran izan «EUSKAL HIT PARADE» idazpuruaren jarrayan azalduten dan eresi edo abesti arazoen aurka, ez orixe!, ez-pada «HIT PARADE» itz bioren aurka, eta esaten neban englandar itz biok Euskeraldu bear zireala, eta orretarako, adibidez lerro batzuk ezarri nebazan, onetara:

«EUSKAL ERESI TXORTA»
«EUSKAL ABESTI BARRIEN ERAKUSKETA»

edo orren antzekoaren bat egokiago izango litzakela eta itz biok zuzen eta argi Euskeralduteko, ona izango litzakela Euskaldun jakitunai laguntasuna eskatutea. Orixe esan neban, besterik ez, bestela irakurri lantxo ori eta egiztuko zarie.

Baita ere, idazki orretan ekiten dauste: «Ez jatzu guztatzen?» Ez, gizona, ez yat atsegin HIT PARADE izenok, ez niretzako bakarrik, ez-pada, uste dot, Euskaldun egizko asko eta askok ere ez dabela ontzat artuten itz arrotzik. Beintzat niretzako, egiz, ez dira begikoak.

Eta orain, «Ez jatzu guztatzen?» esakun onegaz nai ba-daustazu adierazatal orretan azalduten dirazen Euskal eresi, abesti eta direalakoak, ori, gizona, zetan aitatu bearrik ez dago, «geure etxeko» gauzak dira, eta lan andi eta jakingarri orrentzako txalorik sutsuenak.

Baita ere, idazki orretan, aitatuten dauste onetara: «Euskal diskoen... barriak...», baiña, guk, Euskaldunok, ezin geinke idatzi «Disko» ordez bestEuskerari yagokon izenen bat? Erderazko «Disko» gure artean «biribilla» deituten dautzagu, beste batzuk «Disko» ordez «Plaka» eta antzeko itzarri batzegaz adierazoten dabe.

Egiz, aspaldion, itz-barri gitxi sortuten dira Euskera-arloetan, batzuk bildurrez geurartekoren batzuk ez dagien tenteltzat zalatu, baiña, nire ustez, asmo barriak sortuten diranean bearrekoa da norberen mintzaerea ere aberastutea, bestela gure izkuntzea motelduta geldituko litzake, orregaitik gauzak Euskaldunok milla eskarron emon bear dautsaguz gure aurretik izan diran Euskaldun jakitunai, ainbat itz barriakaz gure Euskerea aberaztu dabelako eurai zor dautsagu, gure Euskaldun adimena goratu eta ugaritu dauskulako.

Asketsi, irakurle, baiña «Disko» itzagaz sartu nazen ezkero, nai nuke neure Euskaldun gogoagaz Euskeraldu, eta aurretiz, zuentarikoren batek lagundu ba'ledi, aunitz eskarbero eta maitekorrenak, eta beintzat, artietan agertu bearreko naz neure aburua.

Lendik aitatu dogu erderazko «Disko» Euskeraz «Biribilla»dala, Eta «Disko» edo «Plaka» ikasteko erdel ikastoletan ainbat eta ainbat urtean jardun dabarek-eta arteztu arte zertarako direan gauza orrek jakiteko, Gaur ostera, «cinta magnetofónica» sortu da eta bardin lan ori egiten dau, Batzuk eta besteak «zarata» egitekoak, baiña ez bakarrik abestu, itz, ez ba'da «eco» erderaz esaten dan lez, sortuten dan zaratea edatu eta entzutekoa. Gure artean «eco» «DURUNDIA» da eta «Durundia» egiteko «tramankulua» «DURUNDUKI» izan ete leike?

Oldozpen guztiok eretxiak dira, eta beste edonork ere eretxi barri eta egokiagoak erakarri leikez, bai batzuek, eta baita ere bestetzuek, eta eretxi euste guztiok pillotuta, gogo onez, arakatu geinke Euskereari yagokazan itz argi, garbi eta samurrak.

GAUBEKA ETA DUO'tar BITOR

GAZTE

ZAZPI EGUN

ASTELENA

Añorga'ko senar-emazteak, bidean, beribil baten barruan il dira. Berarekin zijoan neska tiki bat ere, ordu larri batzuk igarota, bere bizitza amaitu du; ordu asko eri egon aurretik.

Añorga Donosti'ko auzo bat da. Añorga egun abetan goibel dago. Bi etxetan negarra, bi sendi autzi diralako. Garratza benetan gertakizun au.

Egunero bide ertzetan, beribillak ikusten ditugu autzita, aldamenean odolez inguraturik. Tecnika'ren aurrerapenak, zenbat aldiz ondatu du gizonaren bizitza!

Noiz arte?

ASTEARTEA

AGUR'ko berri emailleen albisteak irakurri ditut beti bezela. Eta beti bezela onuragarriak benetan. Gure errietako albistariak, lan bikaiña egiten ari direla, aitortu bearra dago. Zenbat irakurlek irakurtzen dituzte errietako albisteak?

Emen dauzkagu zenbait erri, AGUR'en bitartez, errietako, arazo, kirol gaiak, berri pozgarri eta minkatzak, zabaltzen dituztenak.

Bilbo, Segura, Tolosa, Irun, Errenderi, Usansolo, Ondarru, Bermeo, Ondarrabi, Euba, Galdakano, Zornotza, Arrasate, Basauri, Arratia, Zeanuri, Zestua, Oñati, Zaldibar, Zumaia, Zamakola, Elduayen, Markina, Abadiño, Mungi, Altzatzu, Gorbea, Azpeiti, Izurtza, Basauri, Arrankudiaga, Ibaizabal, Donosti, Larrabetzu, Arantzatzu, Bakio, Berriz, Etxeberria ta abar.

Errietako albistariak, eutsi lan orretan, beneran jakingarrizkoak dira zuek bidaltzen dituzuen berriak. Zorionak eta aurrera.

ASTEAZKENA

Mikel Pelay Orozko'ren omenez, bere lagun batzuk, apari baten bitartez, alkartu giñan. Amaika abek bildu: Pelay, Labayen, Latxaga, Linazasoro, Oñatibia'tar Yon, Oñatibia'tar Manu, P. Berrondo, Zaloña, Juan Garmendia, «Uxola» eta ni. Yon Oñatibia'k, bertso sorta bat abestu eta eskeiñi zion Pelay'ri. Linazasoro'k berriz, txistuaren bidez, abesti polit bat jo zuen bere omenez. Azkenean, Pelay Orozko'k eskertu zun benetan eskeiñitako omenaldi xamurra.

Euskal arazoaz irten zan geienen, gure izketaldia. Tartean umore ona ere agertu zan, eta orrela lortu gendun giro osasun eta atsegingarri bat.

Gau argian, etxeruntz abiatu nintzanean, indar berriturik bezela arkitu nintzan.

Osteguna

Ezer gutxi igaro da egun onetan. Dantza leku, ostatu eta zinemak jendez gaiñezka ikusi ditut.

Neskameak, bere eguna atseden pixka bat jasotzeko aukeratua da ain zuzen.

Nola konpontzen ote dira egun oietan, «señorak», aur kontzen, erropa garbitzen, eta beste etxeko eginkizunetan? Gizonari galdetu bear apika.

OSTIRALA

Telebista, ikusten egon naiz, egia esateko, azkeneko ikusi nuanetik, ez da gauz askorik aldatu. Amar minututik, amar minutura, anuntzioak ipintzen dituzte, ikusten ari zeran gaia mostuta utzirik. Geienak gaiñera, edarienak dira, eta edarien alboan, beti emakume bat jarri bearra daukate. Ba-dirudi errian, mozkorrak eta emakume zaleak bakarrik bizi dirala, beste arazorik gabetanik.

Irekin, ezin ditekek konta.

LARUNBATA

Emakume bat, bere txakur tiki, polit eta garbia, etxetik atera eta ibillaldi bat egiteko asmoakin irten da nunbait. Txakur tiki, polit eta garbiak, ezkerreko anka altxa ta... lur pitin bat bustita utzi du.

«Cariño, eso no se hace»-erritan esan dio emakumeak.

Ori da ori, txakur bateri eman bear zaion ikasketa.

IGANDEA

Gaur amaitu omen dira kinielak. Gizonok aberasteko buruausterik ez degu izango orain noski. Laister, bereala asiko dira berriz milloiak dantzan.

Bitartean jendeak, ondo irabazitako oporketak igaroko ditu... lantokian, ordu askoren indarrez, beribillaren letrak ordaintzeko asmoakin.

RAMON ZAPIRAIN

NOIZ ARTE ONELA?

Gure errian gertatzen dan arazoagaz oso nekatuta nago.

Euskalerriak, euskal erri legez, izkuntza bat dauko, baiña, nire ustez, izkuntza ori oso zatituta dago; batzuek prantzes edo gaztelaraz nastazen alegintzen dira, lateratzen. Beste batzuek, garbikerietan jausten dira.

Euskera batu baten guztiok ulertzea, zoragarrizkoa izango litzake. Euskera batua esan dot, baiña ez euskera batutzat erabilten dan euskera-erderatu ori.

Gure izkunzea osotzen be, naikolanik ba-daukagu, orain beste naaste batzuek sortzen asiteko, ta beste izkuntzetatik itzak artzeko; geureak dauka aberastasuna eukita.

Alegindu gaitezan gure izkuntzea BAT izan daiten. Barregarriak dira batzuentzat eta negargarriak besteentzat gaur egunean darabilguzan umekeriak: geu, geure artean alkar-uler gurezik, bai, ulertu gurezik esan dot. Eta ez dot uste ulertu eziña danik.

Noiz arte onela? Euskalerriko jakintsuak olan ba'dabiltz, zer egin go dau erriak? Ta, barriro galdetzen dot, noiz arte onela?

LANDALUZE'TAR JOSEBA

R. Zapirain'eri

APAIZ IZANDAKO BATEK

Nik ere ez nuan espero zure idatzirik, ta, are gutxiago, zurekin artuemanetan ikusiko nintzanik. Izenez ezagutzen zindudan; zeuk ez nauzu ezgutzen, ordea, ta... Dana dala, ona emen zuri erantzuten.

Zure eskutitz ori irakurri ondoren, erantzun ez erantzun gelditu naiz; azkenean ere, artu dedala jakin araztea ondo legokela iruditu zait.

Gai ontzat jo dezu apaiz izandakoen ori aldizkariko lantxoa betetzeko. Baiña, nire ustez, prolema larria da bizpairu itzetan azaltzeko.

Ez duzu serio jokatu. Gaiak plazara atera biar diranean, dagokien sakontasunaz erabilli bear dira. Bi uskerirekin ez dago onelako gaiak erabakitzerik, ezta au lako prolemak argitzerik ere. Idazlearen lana arduragarria da. Ez dago buruarin jokatzerik. Ortarako, ixilduta obe.

Diozunez, «lagun bezela» idazten didazu, ta eskerrik asko zure borondate onagatik, baiña borondate ori ez da asko nabari. Irakurri ondoren, mingotsa gelditu zait aoa. Ta beste irakurleak ere ez gaituzte len baiño begi obeakin ikusiko. Aurrerantzean ere, zu bezelako lagunekin, «naiko min eta buruauste» izango ditugu.

Gure apaizgintza bi arrazoi auetako bategatik utzi degula dirudi, alegia, txartzat geure burua jotzen degulako edo «eginkizun sakonagoak eta garrantzidunak tartean diralako». Ta gaiñera, diozu, azkenean damutu egingo ote geran-edo. Bestalde arrazoi oietatik bigarrena aitzakitzat jartzen degula esan diteke. Irakur itzazu, arren, zeure itzak: «Biotzez siñistu nai nikek, i ez aizela igeska jon txarra aizelako, beste eginkizun sakonagoak eta garrantzidunak tartean diralako, ala ez...» «Siñistu nai nikek...»; geroxeago, «nik ulertu nai nikek...» Aal-erako aditzak. Borondate gutxi ta ustela agertzen duten aditz-erak.

Dana dala, ez aaztu asko gerala, bai, ta norberak bere prolemak dituala. Bakoitzak bereak, Itxuraz antzerakoak, barrengordean, berriz, oso ezberdiñak. Asteroko lantxorako aitzakitzat artu ezin ditezkenak, ta, zer esanik ez, nolanaiko tentelkeriekin okerrago gelditzen diranak.

Ta, gero, nik beñipein ez dut alde egin apaiz txartzat jotzen nintzalako, ez eginkizun sakonagoak eta garrantzitsuagoak bide ziralako ere; ba, oraindio, apaizen lana goiko eta sakonenetariko agertzen zait.

Damutu ere ez naiz damutu, Damutuko ote naizen? Jakin ezin ditekena da. Sentittuko nuke benetan, ta ba-dut ardura, ez bai naiz egoki gertatuta ikusten. Ardura, ez niregatik, nire ingurukoei ekarriko nizkieken samiñakatik baiño. Damututa ere, ba-dakit ez naizela beiñere damutuko bide zuzenaren billa saiatuagatik, Milla aldiz okerretik artuko banu ere, ez.

Zuk ez izan ardurarik. Nire prolemekin ez dut iñor zamatzerik nai. Askoz gutxiago zu. Ez dut zugana joko, ez bai dituzu birritan eroriak jasotzen. Garbi asko diozu, bai, «Nik ulertu nai nikek, baiñan apaizgintzarako txarra aizen bezela, beste eginkizun orretarako ere, ala aizela aitortzen ba'duk ez nerekin konta».

Jainkoari esker, lagun izatea beste zerbait dala uste dutenak ugari dira, batez ere euskaldunen artean. Guzien gaiñetik, Jainkoa bera, benetan laguna, bein eta berriz barkatzeko ta laguntzeko gertu dagona. Batez ere zuzen eta gizontsu jokatzen alegintzen direnei laguntzeko. Ta nire iritzi apalean, gutako geientsuenak zuzen ta nai onez zazpi alegiñak egiten dituzte.

Besterik gabe, agur.

U.

ONA

ta

RAM

EZNEAK

ZUK

ONARTZEKOAK

DITUZU

KONTU KONTARI

Elgeta'ra egin gendun ibillaldiari buruz, euskal-egunkaria aitatu neban.

Ori, zoritxarrez, eziña zala esan eustan ezagun batek.

Len be, orrenbeste entzuna nintzala erantzun neutson. Orain 38 urte, bardin-bardin esaten eben geienak; gauza zailla zala. Urrutizkin, urrutidatz, teletipo, berri-emoleen etxeak eta abarrak, guztiak euskeraldu bearra zala ta ez egoala astirik egunerokoa kaleratzeko.

Eragozpen guzti orreik aienatzeko, ba zala gai bat, erantzun neutsoen orduan: Dirua.

Gai orrekin egin leitekela egunerokoa. Ala ta be, bataren eta bestearen eretxiak ontzat arturik, Batzar arek, erabagi au artu eban: Eziñekoa zala, zoritxarrez.

Ortan lotu giñan. Andik iru urtera, gizon bat etorri zitzaidan esanaz:

—Zuk, egun batez esan zendun, euskal-egunkaria egin leitekela, dirua izan ezkero.

—Ta gaur be bardin diñot —erantzun neutson.

—Ba... ortarako bear dozun diru guztia izango dozu.

—Alan ba'da, neu arduratuko naz, asmo ori aurreratzen. Amabost egunen buruan atarako dogu.

Eta alaxe gertatu zan. Nik, ni baiño azkarragoak ziran lagunak aurkitu nebazan ortarako, izparrak euskeraldu ta idazlan sakonak egiteko. Dirurik eskaz ez genularik, argazki ta abar, txukun, dotore! ataratzen genun egunkaria. Aldi artako onenetarikoa zala esan daiketsuet, kezkarik bage. Eta izparrik berezienak, urtenenak, beste izparringik ekarten ez zituezanak argitaltzen genuzan. Ortarako bere, izpar-iturri berezia genun, ta ez diruari esker, baizik geure egunkariak artu zun ospeari esker.

Gaur, euskal-egunkariaren billa bagiltz. Ego-Aprika aldeko arrolio edo petroleozale batek eskiñi dauskuzan eskintzak burutzen ba'dira, gu, barrabaskeriren bat egitekotan gabiltz. Barrabaskeria esan ba'leikio beintzat, euskal-egunerokoa argitaratzeari.

—Eta... jaun baltz orrek eskiñi dautsuezan eguneroko bi arrolio upelak azaltzen ez ba'dira, zer?

—Orduan... geuk lortu bearko doguz, geurenez. Ortarako zulaketak egiten asiak gara. Zuloetarikoren bat loratuko al da.

Dana dala, bikoti, pare ederrak daukaguz eskutik, Ordago! jo al izateko.

ABELETXE

ubide'n illetea

Gure erritxuetan, noizean bein, siñistu eziñeko gauza batzuk jazoten jakuz. Eta oraintsu Ubide'n izan dogu olako jazoera bat.

Ogei ta amar urte inguruko mutil batek, orain ogei urte ezagutu neban bera, andra bat il dau. Andra au ardandegi bateko arduraduna zan lenago eta berbaren batzuk izan ei ebazan mutil onegaz eta orduan artutako gorrotoak oindiño bere barruan irauten izan dautso eta gorroto orren indarrez eriotza ondo gogorra emon dautso andra errukarriari.

Ez al da olako jazoera barririk izango, beste batzui be antzeko gorrotoa ei dautse mutil onek eta. Mutil ori, antza ez dabil burutik ondo, baiña zoro-etxera eroateko bestean zoro ez, eta oso errudun izateko bestean burudun be ez.

Illetea zala ta, ara urreratu nintzan. Jentetza ederra alkartu giñan eleizan eta, gogoz, il zanaren alde otoitz egin gendun. Olako eriotzak gertatzen diranean otoitzak beroago urteten dau eta alkartasuna be sakonago agertzen da.

* * *

Jazoera itun onek Ubide'ri buruz zerbait AGUR'en idazteko gogoa arrerazo daust.

Ubide erri polita da. Barazar'go aldatza igon ondoren Zubizabal, piñadi ederrak, etxe banaka batzuk eta... Jon deunaren txadoneko torre ederra aurrez.

Negurako bizi-leku otz zamarra da. Orregaitik an bizi giñanean gure ameza erri-bera etortea zan. Zenbat egun eder, edurtza ikaragarrietan, gizarteagaz artuemonik barik!

Udarako, ostera, ete dago Bizkai'an bazter pozgarriagorik? Bai, ba leiteke, baiña Ubide txoko pozgarria da, norarurten ederrak ditu. Gorbei'raño igon gura ez dauanak Atxurdiñ'en dauka eguna non igaro, arraintzan zalea danak arrankari edo amurrain ederrak eta gozoak Gorbei'tik datozen ur gardenetan...

* * *

Eta euskal girorik?

Ubide Bizkai'aren mugan dago. Egia da Elosu'n be, Araba izan arren, nofin urtetsuak euskera egiten dabe, baita Nafarrate'n Urrunaga'n eta Urbina'n be, Villarreal be euskalduna da... Baiña erri guzti oneitan euskerea galduez doa.

Tamalgarria da. Eta zer egin gure izkuntzea il ez bizi dauken erri oneitan? Or bearrezkoak ikastolak, or euskaljaiak, or gurasoen euskal-kontzientzia, or eleizkizun bereziak... Oindiño erri euskaldunak dira, baiña il-zorian. Lagundu dagiegun.

Illetea erdi erderaz erdi euskeraz izan zan. Baita zer edo zer latin be: Aspaldian aiztuta geunkan «gloria in excelsis Deo» antxe abestu zan. «Gure Aita» oso ederto...

MARTIN

Alkar-Izketan

—Gaur, Peru, udabarriko edertasunari yaramon barik, izparringia ain arretaz irakurten ikusteaz arritu nok. Izpar garrantzitsuren batzuk yakazak ala?

—Bai, mutil, ez dok gitxiagorako be.

—Zer dok ba?

—Ba, Ipar-amerika'ko lendakaria, Nixon, Mosku'ra yoan dokala ango yauntxoei iker-aldi bat egin eta itzegiten.

—Orrek ez yaukak zer ikusi andirik, alkarri itz eginda gizonak aitzen dozak-eta.

—Ori ba-ñenkian neuk be. Baiña aitu ezin yoatana auxe dok: Errusitarrak. Ipar-vietnam aldekoari zenbat gura izkillu ta gudarako tresna bialduta lagundu, eta Amerikarrak Ego-aldeko Viatnam'eri laguntzeko egazkin bidez millaka tonelada bondak yaurti ta zuzitu, ta inguroko itxasoak miñaz esitu ta ainbeste uritar errubakoak il eta aldienpuruz eta nekez lortutakoa une batean ezereztu ta bitartean bitsuok mai ederraren inguruan alkar-aitzeko asmotan ikustea.

—Alkarren bildur diranen artean olango gauzak ikusten dozak.

—Olango gauzen bat izan bear yok. Or ibilli dozak urte bi ta erdian alkar aitu eziñik eta azkenean, atomobondarik geyago ez egiteko alkar-artu yabek.

—Ori ondo yagok, baiña ez dok naikoa. Bata bestearen uririk andienak, zusterretik atera ta guztiz ondatzeko beste daukiezala ba-yakiek, eta zertarako bear yabek geyago?

—Zuzen ago, poztutekoa izango zoan izan be, lendik gertu yaukiezan lerki edo bondok ezereztu ba'yoezan, baiña ba-kik... alkarren bildur diranen artean ori eskatzea larregitxo izango zoan.

—Baiña ez dok ukatuko bakearen alde oinkada bat emon danik, naizta egizko bakearen antzik euki ez.

—Bai baiña, agiñetaraino izkilluz orniduta, «Bakea, Bakea!» diñoanakaz urrin ezkoazak...

—Ba, nik, gizonen artean ezagutu yoadan «bakea» olangoa izan dok. Itzez guztiak bakezale agertzen dozak, eta egitez be bai... norbereagaz urtenda gero.

—Ori ez dok gaurko gatxa bakarrik, gizaldiak-zear ori gertatu dok eta bildur izatekoa aurrerantzean be bardin izango dokala.

—Olan izan ezkero, «egizko bakeak» or goyetan ibilli bearko yok... zati baten beintzat.

—Laterri - agintariak ba'yakiek «egizko bakea» yaritxiteko bideak Kristo'k irakatsitakoak dirala, baiña gexo batzuk antzera, txarto egon eta osatzeko osagarri bakarra zein dan yakin arren ez yabek artu gura garratza dokalako.

—Ba ori egiten ezpayabek ezin itxaron geinkek gauza onik, batez be alkar itunduten diran bitartean oingoan gertatu dokan lez. Vietnam'eko errukarrien gaiñera millaka tonelada yaurtiten yabezan artean.

—Oin aituik zenbat eratara «bakezaletasuna» egertu leiken.

—Bai ori aituteko astebete bearko yoguk, eta gaurkoz naiko izango dok. Agur.

—Agur ba, ta ondo ibilli...

URIGOITIA

KATALIÑ TRAPUX

Erdiko kalien bizi zan. Urte asko, asko benetan diraz Kataliñ beraz jundakuek. Berrogei edo berrogeta bost...? Asko benetan beiñepeiñ.

Gaur, etxe barri bat da gure Kataliñ bizi eta il lekuen. Kataliñtxuneko etxetik asi eta beruzko illeran.

Bakarrik bizi eiñ zan beti. Bakarrik, beintzet pamiliko barik, lagun krixtiñau barik. Baiña, bakar, bakarrik ez, ez orixe. Iru edo lau txakur eder beti bere gonetan. Jan, lo, ibilli, beti, beti, bere txakur aldra ederraz.

Onek txakur aldratik, neure ustez, bat zan maitxiena berantzat. Au txakurrori agertze zan paparreko ugelaz ta zider plantako kata briz-brizaz. Txakur lodikote biribil eta lustrau bapote-bapotie zan...

Arretxiñako San Migel'en erromerixan, Karmenetan, Santa Eufemia'n, San Martiñ'en..., danien, zenbat, zenbaten erromerixan egon aldi galantak egin dakue zan gure Kataliñ...! Patxadaz, patxadaz, bere otzarakiñ egindeko dendatxuen, erroskillak zaltzen.

Erroskilla orrek, soka txortetan txintxillizke, bere txakurrok inguru ebezala, gutzet erregiñ ederrena, egoten zan Kataliñ argi eta garbi alderdi guztion begira... Mutil koxkorrak gitzan, gora eta bera, erroskilla gozuori begi begira... Baiña, Kataliñ eta bere trakurrok guri begire...

—Kataliñ, emon mezedes erroskilla bat, bat bakarrik...!

—Txotxo. Txakur txiki bat balio dau bakoitxak. Emen ezta ezertxo emoten debalde... Zer ba...!

—Txakur txiki bat nai dozu, Kataliñ...? Eztaukezuz ba, or, zure gonapien lau txakur eder...?

—Lotsa bako umiok...! Alde emendik urriña, e? Neuk esan gotzet zuen aitxari zelako lotsa galduko umiek zaren, bai.

Onek berbok entzunez, ume guztiok laster alde egite gendun Kataliñ'en «dendatik».

Aitxai esan egiñgo'totze ezer...? Auxe gure buruen...

Geuk, beintzet, aitxantzat errezpetu aundixe gendun benetan. Kataliñ'i maitasun bioz biotzekue, eta bere txakurreri ez bildur makala.

Gaur, onek gauzok izen die neure akorduen. Egune dot illune, laiñotsue... Nere gaurko AGUR elduko'te da zerure...? Kataliñ trapux, zer modu...? Txakurrek isil isillik dagoz... Nire ezpanak, biotzeko indarraz, diñue... Aitxe gurie, zeruen zagizana, Kataliñ'tzat gorantzia asko, bai gero, asko...!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

KIROLAK

ZESTU'TIK MUNGI'RA

MUNGI'KO PELOTAZALEENTZAT

Agur'en 38'go zenbakian, irakurri al izan dut: «Mungi'ko esku-pelotaren txapelketa dala-ta; norgeiakoketa onek, izan duan arrakasta, ez dala txikia izan».

Mungi'n, pelotarako zaletasuna leendik datorkie. Orregatik, pelota-leku eder baten jabe diranez, esku-pelotako joko-aldiak, eziñ-obeak izan oi dituzte; pelota leku ortan, jokatu gabeko pelotari gutxi izango dira.

Ikusten danez, «Danok-bat»i eskerrak, Mungi'tarrak urtero txapelketa ori ikusteko era izaten dute. Leiaketa oiek, pelotari gazteak pozturik, gure kirol paregabea galdu barik eutsiaz, pelotari berriak geitzeko eratzen dira.

Txapelketa oien gora-beerak, Etxegarai'tar I'k izenpetu ondoren; Agur'en oar edo galdera bat dakar. Alegia, Zestua'rrak eta Mungi'tarrak, uda-aldian, ikastolaren alde, Mungi'n eta Zestua'n joko-aldi bi antolatzea.

Sagartzazu'tar Imanol pelotazale ta Zestua'ko txapelketa auen eratzailleagaz, mintzatu naiz. Imanol'ek esan zidan: «Mungi'tarren eta Zestua'rren arteko pelota joko-aldi oiek, antolatzen saiatuko dala; batez ere, ikastolaren alde diranez».

«Zestua'tik iru maillako pelotariak, Mungi'tarrei jokatzeko gertu daudela. Iru mailla auek, ontan banatzen dirala: gazteak, sasoikoak eta pelotari elduak».

Beraz, Sagartzazu Imanol'i entzun ondoren, Mungi'tarrak duzute itza: deitu nai duzutenean, eta alkar-isketa baten inguruan giroturik, izentatu eguna, ta joko-aldi oiek eratu.

Eta Agur'koak eskertu gabe nola utzi? Milla-esker zuen bururatasunagatik!

SAN JUAN-EGUNA

San Juan'go elizatxoa berritzea dala-ta, Zestua'n jai-aldi bikaiñ bat bezperatik asita antolatu dute.

«San Juan»en elizatxoa, erriaren inguruan aurkitzen da. Prantsez gudariak Euskalerrian sarturik, loitu ta apurtu zuten; eta erritarrak berritu ta jaso nairik, utsaren-alde auzolanean, txukundu ta osaturik berritu. Eta orain ere, berdin egin dute.

1782'go urtean, elizatxoaren aurrean aurkitzen zan aritza, ez dakigu zer dala-ta, Zestua'rrak eratxi nai izan zuten. Baiña, Iruiña'ko gotzai jaunak, aritz ori kentzea galerazi zuan.

Egun ortan zer jai-aldi, ta zer eratakoa izango dan zerrendaren berri; datorren astean, emango dizuet.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

ibilkerak eta jaiak

Beste idazlantxo baten esaten geban lez, orain, udabarrian, geyen baten, mendigoizaleak euren urteroko jayak izaten dabez. Bilbo'ko «Juventus O. A.» kirol bazkunkunekoak be, Orril'aren askenengo igandean, Karrantza'ko goi-auzune baten ospatu eben, «Nuestra Señora del Buen Suceso» esaten dautsoen auzune alayan. Auzune onen jatorrizko izena jakin nayan ibilli gintzazan, baiña iñork ez euskun ezertariko argitasunik emon, eta «Jazokun Oneko Ama Neskutza» esango dautsagu euskeraz.

Txadon inguruan lau edo bost etxe ta aldamenean zezen enparantz ederra, Bilbo'k ezik beste Bizkai'ko erriak ez dauken lakoa. Or ospatutzeko zan mendi-zale jai ori, ta bertan izan giñan.

Jai ori asi baiño len, baiña, Armaiñon mendira igotea nai genduan, ta orretarako, Karrantza'ko beste auzune batera, «Paules»era, zuzendu gintzazan. Txadon polit eta etxe mordotxu batekin orniduta dagoan auzunetxo orretan gure «burdia» itxi ta ia ordu t'erdi, lenengo burdi-bidez ta gero bide-ziorrak zear, Armaiñon gaiñera igo. Igokera egokia berau, naita pizka errezagoa izan Iturriotz (Truzioz)'eko Kueto auzunetik gora, au da, sorkaldetik.

Ainbat mendigoizale aurkitu giñan goiko gaillurrean, euskotarrak danak, euskaldun zintzoak geyenak, eta euren artean, arpegiz ezagutzen ez genduan Arriortua euskal idazle gaztea be bai, bere adizkide jator batzukin, Beti be atsegin izaten yaku mendia, baiña, batez bere, onetariko eusko anayekin aurkitzen garanean, askozaz ederrago, bikaiñago egiten yakuz gure mendiak.

Lendik be egonak giñan mendi onetan, beraz ezagutzen genduan. Pozik igaroko genduan aldia, orrek dituzan ikuskizun ederrak gozatuten, baiña mendizaleen jaira joan bear eta adizkide areik agurtu, ta barriz jatsi giñan lengo bidetik berebilla geunkan auzunera ta ortik mendigoizaleak bildu ta jaia ospatuko zan Jazokun One'ko auzunera jo genduan.

Ordubatak inguruan asi zan sari banakuntzea, enparantza ia osorik betetan eban gazteen uyu ta txalotza alayekin Eun eta irurogeiren bat txoli, domiña ta beste gomutagarriak banandu ebezan beste ainbeste kiroldarren artean: eun eta ogeiren bat mendigoizale ta sky-lari ta beste kirolzale enparauak. Benetan sariketa ederra, ta onetariko jai guztietan legez, alaitasun garbia ta adizkidetasun anaikorra susmetan zan.

Orduak baiña aurrera joyazan eta ordubiak zerbait gitxiagoan Batzordekoak agurtu ta zorionak emon ondoren bildu al izan eben gaztedi eder aregaitik, etxerantz alde egin genduan.

Egun ortan bertan, Orril'aren 28'gnean, txango notintsu bat izan zan, Baskonia, Edesa, Ganguren, Osea ta Padura mendizale bazkunak batera zirala, Gipuzkoa alderdiko Irimo mendira. Irureunen bat mendigoizale, neska ta mutil, zaar eta gazte, bildu ei-ziran mendi areitan, beste gipuzkoar askorekin batera, eta eurekaz anaitasunik andienean Zumarraga'ra jatsiteko. Ordu askorik ezin egin izan eben an, baiña pozez itzuli ziran etxera.

Ganguren bazkunak, errikoentzat eta bazkideentzat, ibilketa neurtu bat gertu eban Bagil onen l'goan. Ez zan luzea izan, bost bat ordukoa, baiña egokia. Berrogei ta amarren bat bikote aurkeztu ziran eta danak amaitu eben. Gaztetxuak izan geyenbat alde artu ebenak. Ikusten danez, ez dago geldirik Ganguren, ondo gertuta euki nai dauz bere bazkideak. Aupa Ganguren!

ALTUNA'TAR JOSU

Charles Darwin

XIX MENDEKO JAKINTSUA

Ni gaztea nintzanean, oso modan zegoan, Englan'dar Charles Darwin, XIX mendeko jaun jakintsuaren uste bat, teori bat, eta baita ere uste aren aurkako beste usteak.

Gure ikaskizunetan, Darwin'en aurkako usteak bakarrik erakusten ziran. Darwin'ek bere iritziak nun oiñarritzen zituan azaltzen gutxi nekatzen ziran sasoi artako antropologoak (katolikoak beintzat), benetasun gutxigaz, broman bezela, ta parre eragiteko eran esaten zituzten, edo ta, guri beiñepen ala esan oi zizkiguten.

Oroitzen naiz oraindik, alako *argumento* parregarri bat: «Gizarteak, Darwin jakintsuari zor aundia dio; bera da bada, gaurko gizonaren aurretioko izaki bikaiñak zeintzuk diran billatu eta agertu diguna. Tximuak eta euren sendiko beste orangutanak, txiñpanzeak, eta orrelako abereak omen ditugu gure antxiñago gurasoak. Esker anitz, Darwin jakintsu orri. Gu, katoliko tentelok, Jaungoikoa'k, bere esku argitsuakaz egindako gizon eta emakume baten ondorengoak giñalakoan geunden. Baiña, nundik eta nora gero, orrelako gurasoak? Bai zera! Gure arbasoak tximuak ditugu. Esker anitz, jakintsu aundi orri. Pozez egoteko gauza da, zure jakinduriari esker, ezagutu ditugun senideak ezagutu ditugulako».

Nik ez nuan egille katolikuen ustea siñisteko eragozpenik, baiña nik nai nukeana zan, arrazoi zientziatsuak, ez txisteak. Baiña, katolikuak ez ziran egilleen iritzirik eta argumentorik, ez zan sekula erabiltzen. (gure kursoan beintzat).

Gaizki diot, Irakasle batek esan zigun beiñ, «Virgilio'k, bere liburu batean, egiten zuan, zaldiaren agerpena, gaur guk ezagutzen degun zaldi berarena dala», eta lasai-lasai gelditu zan.

Urte batzuk igarota, Biolojia asko zekian sendagille batek «itzak izpidia ekarrita, esan zidan, Darwin'en iritziak, aurrepide aundia egiñ zuala». Ez dakit nun, eta bai dakit nola, billatu ziran tximu baten ezurrak, gizonenak bezelakotxeak zirala, eta ezur bat bakarrik palta zala, gizonen eta tximuen eskeletuak berdiñ-berdiñak izateko.

Arnasa artu nuan. Baiña, baita ere pentzatu «Eta palta dan ezur ori, iñoizko dendoran aurkitzen ba'da?»

* * *

Gauzak onela, oraiñ irubat urte, Durango'ko jesuiten kolejiaon, Barzelona'ko Unibersidadean, Antropologia Irakasle zan, Aita jesuita euskaldun batek, itzaldi bat eman zuan, izen onekiñ: «Ezagutu ditzagun Zienziaren argitasunean gure antxiñako gurasoak». Ez naiz oroitzen jesuita onen izen abizenak, baiña euskaldunak ziran.

Argi ta garbi, eta bene-benetan, parrerik eta ixeka gabe, erakutsi zuan gure aurretiokoak tximuak zirala, eta tximuak gizonen antza artzen, millaka ta millaka urte igaro zirala. Guk ditugun ortz eta agiñak bezelakoak izateko, tximuak amar milla urte bear izan dituztela, aldaketa gelditu gabekoan. Itzaldi osoan, Darwin munduan izan zanik ere ez zuan aipatu.

Nik zearo jo nuan beia, itzaldi ura entzun nuanean.

* * *

Orra azkenean zertan geran, pentzatu nuan. Orra oraiñ, Darwin jakintsuaren tesis garaitzaille, eta guk katolikuok ixillik egon bear.

Andik denbora gutxira, Pedagojia'ko idazlan batean irakurri nuan, Ipar-Amerika'ko Laterri Batuetan, Estadu batzuetako gurasoak, Wasington'eko Gobernuari eskatu ziotela, amabi-amairu urte bete aurretik, ez zeiela umeei, Darwin'en teoriarik irakatsi ikastoletan, gercago baizik. Ondo iritzi nion.

Eta Biolojia ikasten diardun neskatilla batek, esan dit arreskero, gaurko jakintsuak, egiatzaz artuta dauken arren, Darwin'tasun edo Darwin'keri ori, emendik urte batzuetara, izan leikeala egitzat ez eukitzea. (Ikus, Agur'en 4'gn zenbakian «Itzetik Gogora»).

Eta, arrezkero oraindik, adizkide batek esan dit, Paris'eko Unibersidade batean Irakasle dan jakintsu batek esan duala, (Paris'eko Radio Paris'etik ain zuzen), Darwin'en teoria ori, zientzia ikaskizun garrantzi aundiko bat dala, baiña, Biolojia'n bear bezela oiñarritu gabea. Nik, berriz ere arnasa artu nuan.

* * *

Lantxo au bukatu baiño len ikusi dezagun Vietnam'en gertatzen ari dana ainbeste urtetan. India eta Sortalde'ko Pakistan'en pasatu diran gauza izugarriak, amabi eguneko guda orretan (Luzeagoa izan baldin ba'zan zer jazoko ote zan lurralde ayetan?).

Guk ondo ikasi genduan, Gernika, Durango, ta beste gure erri asko, autz biurtu zituztenean, inguruetako ill-erri danak ildakoz bete, ainbeste ume-zurtz eta ainbeste alargun, (bost, zazpi, aurdun ama gaixoak zaarrenak zortzi urte, txikienak bat) bi orduan sortu zituztenean, eta goian Zerua ta beian lurra gelditu... guk ondo ikasi genduan, gaiztakeri oyek eziñ zitezkeala maitetasuna bera dan, Jaungoikoa'ren izenean egiñ, eta, gizon danak alkar maitatu dezagula agintzen duan Erlijio Santuaren izenean, ez eta ere. Baiña, ikusi zer jazotzen dan Iparraldeko Irlanda'n, ikusi India ta Sortalde'ko Pakistan'en zenbat milla pertsona, zenbat milla ume garbitu dituzten amabi egunetan. Jaungoikoa'gan siñisten duten gizonak, naiz katolikoak direla naiz protestanteak, naiz Mahoma'tarrak, Buda'tarrak; nola leike Jaungoikoa'ren aurka orrelako inpernukeriak egitea?

* * *

Buruauste auetatik, Evaristo Acevedo idazle umoretsuak atera nau. Ara zer dion Europa'ko gogorkeriatzaz «Ezkerreko gogorkeri-zaleak, apurtzen dituzte batzuetan santuen irudi eder artetsuak. Eskuiko gogorkerizaleak berriz, ondatzen dituzte Pikasso'ren lan ederrak... Darwin'ek arrazoia zuan bere tesisean. Baiña ez zun ondo adierazi. Onetara esan bear zun; «Gizon gogorkerizalea (naiz eskuitarra, naiz ezkertarra) tximutik dator, tximutik dakar bere jatorria».

AZPEITIA'TAR JULENE

EUSKAL FILMA BARRIA

Bizkai-Arabako zinemakaz, ume zinemakaz ta... bein da geiagotan mintzatu dautsuet. Orain lengoen jarrai bidean, beren antzeko Euskal-filma bat jardun bide arturik, oraindikarren guztiz tajutu bagarik dagonarren, nolakoa izan leitekean, luze semarra batetik ta al giñoan euskal kutsudun sakonezkoa bestetik ta beste zertzeladakaz zertxobait esatea gura neuskizue.

Bizkaia aldean, Euskal filma benetako bat lortzeko asmoaz, ta Unzalu'tar Joan Andoni buruzagi dauala alegia, talde gogoangarri bat agertu iaku. Gero laster bateko Euskal-filma onek, tinko gure asabaren ekanduetan sustraiturik, Euskal-Erriko eskualde guztiriko oiturak ezezik, erki bakotxaren izakera berezia (zugatz-enbor bat izanik, kimu, adar ta bestelango ezbardintasunak dituan bezelatxe) aspaldi bateko ta gaur eguneko ogibideak, Euskal-eresi Irakasleen doiñu ta egitura apartekoak, abesbatz ta abesti urtenenak, mueta guztiriko ertilanak, kirolak abar t abar adierazo nairik, gaur eguneango Euskal-Erriaren Nortasun betea ukatu eziñezkoa ta era batez bizitasun pare bakoa agerazoko dauskuz ain zuzen.

Gogoan daroaguz Euskal-filma jatorrak, gure oituren agiri bilduma lez izanikoak. Oraingo ontan sakon be sakon jokatzeko ardura biziaz ba-daragoioenez, bai izentaturiko taldeak baita ere beste lagun-arte ta artarako billaturiko alkarte bereziak, filma arein lorratzak jarraituz euskal-filma aipatu bat opa izango dauskuelakoan gagoz. Orrela izan daiten Fernando Larruquer Jauna billatu dabe.

Guztioen artean «Orixe»ren poema «Euskaldunak»az, aldakuntzak aldaturik jakiña, bardintzeko aiñako film-zinema bat lortu ete geinke?

Or kezka; baiña onetara doaz, baikortasuna galdu baga, talde guzti onein indar ta asmo betekorrak. Aurretik zorionak opa dautsuedaz. Tartean itxaro bearra dogu. Baiña uste dogun lez, eroapen ta aspertu barik jarraitekotan Euskal-filma luze ta jator bat lortu geinkela deritxot. Gerokoa al izango iaku lekuko!

ARREGI'TAR JOSU

TXIKIEN BERPIZTEA

Indarkeriak ba-du, zenbaitetan, bere alde ona. Ukatzerik ez dago indarkeriaren bidez lortu dituala URRS'ek bestela iñolaz lortuko ez zituan aurrerapenak. Erriaren mailla zertxobait igotzea lortu du, eta batez ere orren aundia eta zabala izatearen indarrez jakintza gauzetan igo. Eta onekin nuklear gauzetan zerbait izatera iritxi ere. Baiñan kezka emen datza: Langilleraren izenean egindako iraulketa, langilleen bizkarretik egin ote duan. Erri txikien izenean egindako iraultz «askatzaillea», ain zuzen beroien lepotik sortua izan ote dan, ustegabez nor-berak egindako kate aztunagoaz inguratu ote duan ere azkatasun-naieran lepoa.

Boltxebikeen garaitzaren ondoren jazan izan zuten zigorraren aztuna, itxaropenarekin naastua gertatu da nazio txikiak frenatu duten zioa. Komunismoan zuten siniste orrek zemaien itxaropen iturria agortu da, errepresioaren beldurrak jarraitzen du, baiñan zeredozer gutxitua. URSS'eko nazio txikiak bizi nai dute nazio bezela, eta bizi nai ontaz ikasten joan dira errusitarren irakatsiak. Burruka onetan arpegiz-arpegi sartu ezin, eta legepeak damaioten bidetik abitu dira bazkun eta erakundeen agintaritzetan sarturik. Nazio bakoitzean abertzaletasunak eragindako bultzada da, maiz txinatarrak bere auspoaz aizetzen ba'dute ere, errusitarrok beren erriaz kanpo ereiten duten abertzaletasuna URSS gezurtian ereiñaz.

Onela, URRS'eko agintariek ez dute ikusten ongi Georgia'ko abertzaletasunaren berpiztea. 1921*'garren urtean erori zan URRS pean. Georgia'ko komunisten egunkari eta abots dan «Zarya Vostoka», georgiar ixtorigille baten lana aipatu eta zigortzen du. Bere aberri txikiaren goralpenak, ixtori utsa, egitea, komunismoak erakutsitako ixtori bidetik at omen dabil. Eta ara nun georgiar abertzaletasuna betirako illik usten zutenean, nun arkitu diran idazle orren lagun batzuek ere, beren erri-agintaritzetatik jaurti bearrean eta zigortu bearrean.*

Bereziak izan dira betidanik georgiarrak abertzaletasunaren eta azkatasun zale bezela. Onekin, ongi jakin izandu dute eman dioten autonomi apurraz baliatzen. Ain ongi zaintzen jakin izan dituzten lore, igali eta barazkiak salneurri obeagoan saltzen dituzte estadu-banatzailleak baiño. Onekin ere aberastasun geiago etorri zaie, ta egiñetan URSS'eko errietan pseudo-kapitalistak izatera iritxi dira. Onetxegatik, eskua ere zeredozer zabaldu zaiote...

Ai! baiñan aurrerapen au eta georgiar ixtorigille orren idazki luzea ikusirik, pentsatu dute abertzaletasunaren berpiztea asi dala, eta ontan bai ez dutela amorerik eman nai. Georgia'ko uri-nagusi dan Tbilisi'ko agintari «ideologo-eterodoxoak» bakarrik bai'lira! Baiñan Baltiko aldeko laterriak izan zíranetan ere berpizturik bai-dakuste nazioetako abertzaletasuna.

Alderdi Komunistak azken batzarrean erabakitakoa aurrera eramateko dabiltza. Estonia, Letonia, Lituania, Ukrania, Moldobia, Krimea, Georgia eta beste erri txiki askotan ernetzen ari dan abertzaletasunaren landarea ikusi ordukoxe zaiñetik ebaki nai dute. URRS'ek emen bai-dakus benetako arazoa, eta ara zergatik: URSS'ek beti izandu du itxaropen, guda aundi batean sartuko ba'litz, etsai errietan sarturik dauzkan alderdi komunistek izango lituzkeala «kinta kolumnaren» azi eta eragilleak, Baiñan, ongi dakus berak ere orain, bere barru-erraietan izango lituzkeala areriorik gogorrena. Ain ziur bere katepetik askatu nai duten erri txiki zanpatuak. Orra or zer dala-ta sarturik dabiltzan beren erakundeetan, ixil lanean.

Auxen da nazio txiki auen itxaropena. Baita yankiarrena. Eta batez ere betiko arerio duan Txina'rena, naiz, egun, gorriz jantzirik azaldu.

UXOLA

bajurrako arraintza

Euskal-Erri'ko arraintzari buruz jakintza bazkun batek egin daben azterketa sakona liburu eder baten argitaratua izan da. Saltzeko barik emoteko egindako liburu orren jaube egin gara ta, emoten dituan dato ta zenbakiak alde batera lagata, bere eretxi nagusienak laburtuta emen jarriko doguz. Ona emen diñoana:

«Ez da egon arraintza politikarik. Dana tun-tunean egin da. Arraintzari buruzko itxaso ta legorreko arazoak aztertu egin bear dira ta azterketa orrek aginduko leuken erako jokabidea artu. Itxasoa aztertu bear da ta arrai toki barriak billatu ta zelako ta zenbat arrai dagoan jakindakoan jakin dan orrek agintzen daben erako ontzidi edo flota egin. Azkenengo urteetan emengo arraiñari dagokion baiño ontzidi indartsuago egin da, au da, arrain gitxi ta ontzi asko.

Arraintza arazoak, oso-osorik antxiñako erara jarraitzen dau, artesano erara. Jaube edo enpresa geiegi dago ta txiki edo makalegiak dira, jaube bakoitxak geienak ontzi bat baiño ez dauke-ta. Azienda jaubeak ez dauke irabazirik; ala be iñor ez da ondatzen edo pikotara joaten, au, siñisgatxa dirudian arren, ontzi jaubetasunak emon oi dautsenagaz gaiñera arraintzale lez be (eurak be itxasoan ibilten dira-ta) irabazten dabelako. Aziendari goruntz eragiteko zaletasunik ez dauke ta diru aalik be ez aurrerabidean jarteko. Irauteagaz konprome dira.

Arraintzale langilleai edo tostartekoai euren ordain modua arraintzaren arauz da. Baltsako gastu batzuk kenduta gitxi gora-bera erdiz bana egiten dabe ontzi jaube ta tostartekoak atrapauten daben arraiñaren balioa. Beraz arraiñik ez ba'dabe liorreratzen arraintzaleak ez dauko lan saririk. Au ez dago ondo ta liorreko lantegietatik aspaldi kendutakoa da. Lan sari ordaintze modu au langilleak eurentzat kaltegarritzat joten daben «destajo» berbera da. Ain zuzen, ontzi jaubeak aurrerabideari arpegia emon barik lenean jarraitzea, beste errazoi batzun artean auxe da, arraiñik atrapauten ez ba'dabe lan saria emon bearrik ez izatea.

Arraiña subastan saltzen da, goitik bera saneurria abestuaz etorrita. Arrain saltze era au ez da zuzena. Erosleak alkartu leikez arraiñari saneurri txikiagoa ipinteko. Gaiñera, era onetan saneurriak gora-bera andiak izaten ditu. Arraiñari saneurri ziur bat ipiñi bear litzakio edo gutxienez beko mugak ipiñi, beregi jatsi ez daitean.

Azienda edo jaubetza guztiaren ardurea lemazaiñak izaten dau, bera da lior ta itxasoko arazo guztien arduradun buru. Au aziendarentzat kaltegarri da. Arrantzako ardurea be naikoa dau lemazaiñak. Azienda guztiko buru liorrean egon bear dau beste batek.

Ontziko lemazaiña jaubea izaten da beti orretarako aukerakoa ez ba'da be. Ori ez dago ondo; zeregin orretarako gauza dana aukeratu bear da nagusia dan edo ez begiratu barik. Gaiñera arraintzarik ez ba'da izaten arraintzaleak lan saririk ez dabela ikusita oraindik errazoi giago dago ola eskatzeko.

Arraintzak emoten daben irabazia osorik arraintzaleentzat izateko ondo izango litzake arraiña jaten dabenari bitarteko barik arraintzaleak eurak eroan edo saltzea, ta baita konserba lantegiak ipintea be.

Ontzien arrain saltzea kai geiegitan egiten da ta ori arrain eskeintza sakabanatutea da ta arraintzaleentzat kaltegarri. Kai gitxiagotan egin bear litzake arrain saltzea. Orretarako kaiak egokitu egin bear dira, arraiña izotzetan gordeteko tokiak eta abar jarriaz.

Ontziak orain arte lez bakarka baiño bear bada taldeka obeto egingo leukee arraintzan. Liorreko langintza batzutan enpresak alkartzeak eurentzat ondoren ona ekarri izan dau, sendotu egin ditu ta arraintzan be beste ainbeste gertatuko litzakioe.

Arranintzaleen kofradiak ezer ez dabe egin arraintza indartuteko .Geiago egin daikee eta egin bear leukee».

Onera arte liburutik artu ta laburtua. Idazlan baten ezin daiteke artu doguna baiño geiago sartu, baiño al izan ezkero makiñabat gauza jakingarri geitu daitekez.

Jakiña, beste edozertan lez emen be bere eretxi guztiakaz batera etortea ez da erreza. Neu be ez nago oso-osorik azterketa orrek diñoazanakaz batera. Baiña balio andiko azterketa dala ezin ukatu daiteke. Onetan, bera irakurriko daben guztiok batera egongo garala ez dago ezpairik.

Gauza batek arritu nau orratio; arraintza koperatibaren aginduz egindako azterketa baten koperatibako itxasontzietzaz ia ezer ez aitatzia.

KAMIÑAZPI

TXAKURRA TA KATUA

Ludi guziak itxaropen aundiak zeuzkan Mosku'ko alkarketakin. Zer gertatu da? Ikusten degunez deuzik ez. Noski, olako gizon aundien alkartzeak beti lortu oi dituzte bakoitzak berari egok i zitzaion konponketak. Latzena ordea, Vietniango guda zan. Zer esanik ez, israeldar ta arabeena ere.

Amerikanoak Europa'n bi aldiz sartu ziran gudan. Beintzat, gure gizaldi ontan. Nola, edo zergatik sartu ziran? Beren konbenenziagatik noski, bestegatik ez.

Makiñaldiz, gerekiko, edo alkartean, esan degu: Nola leike komunismoa ta kapitalismoa baturik gudan ekin beste areriyoen aurka? Lenengo amalauko gudan, etzan Hitler edo naziztarik. Bai ordea prusianismoa. Auek arroak izanik, ta Prantzi menperatu naian beti ebilliaz, amerikanoak sartu ziran gudan laugarren urtean, au da, 1917'an. Pranzesak naiko aulduak zeundela inglesakin batean, eskerrak amerikanoari guda irabazi zuten. Guda ura uste gendun azkenengoa izango zala gure gizaldian. Ez ordea ala izan, ta sortu zan nazizmoa, ta auek oso arro zeunden Europa'n lur guziak bereganatu naian.

Ordun aleman militarrak Hitler'i lagundu zioten, ikusirik jaun ta jabe zirala Europa guzian, berak ez zuten atzetik gelditu nai. Prusionak, militarrak, ikusi zutenean gauzak ez zijoaztela berak nai bezela, ordun asi ziran Hitler menperatu naian. Ongi zijoazkioten bitartean, aleman guziak arro ebilli ziran.

Hitler'ek ordea, ongi zekin prusianoak ez zirala itleristak, ta kontu aundiak artu zitun berak zaitzen. Egin zituzten elegiñak Hitler iltzen, nola bonbakin edo beste eratara. Alperrik izan zitzaioten guzia, ta azkenik aliatuak Prantzi'ko ta Alemani'ko lurretan ari zirala gudan, gauzak batekoz-beste agertu ziran. Hitler'ek ikusirik guzia galdua zegola, berealan lepotik zintzillik jarri zitun eundaka jeneral eta mariskal batzuk.

Amerikanoak ederki ikusten zuten Hitler'en azkena. Orregatik batu ziran komunismoakin batean nazismoa menperatzeko. Une aietan guk ori ikusirik, arrituta gelditu giñan. Bañon, guziak ongi ikusten zuten alkar batutze ori Europa'tik dezeintzeko itlerizmoa.

Gero ordea, ikusten zan garbi, bi otso oiek alkarrekin ez zirala ongi konponduko. Ala gertatu zan. Arrezkeroz izan dira izkalbil ugari komunismoen ta kapitalismoen artean. Ortako ogeitaka urte joan ziran, ta orra or orain Nixon joan Mosku'ra, eta ezer gertatu ez ba'litz bezela, alkartu, emanik eskuak alkarri... esango ba'genduke bezela... «jaunak, emen ez da ezer gertatu, alkarrekin gudatu giñan alemanen aurka, anaiak bezela, ta orain zergatik gabiltz alkar joka...»?

Guziok uste gendun, bira aundi ortan Vietnan'go guda bukatuko zutela. Ez dirudi ezer egin dutenik. Albisteak beintzat, orrela ikusten ditugu. Nik galdetzen det, bizi allitezke alkarturik komunistak eta kapitalistak...? Ez det uste, ta orain artean bezela, ikusiko degu laister, alkar burrukan biziko dirala, Bakoitza bere neurrian arro ta kanbiaketak egin gabe. Bien bitartean zer? Zer izango da: Vietnan'go iñoxenteak erail. Ajola gutxi jauntxo oieri, besteen eriotzak, beren komenientziko gauzak lortzen baldin ba'dira.

Ikusten al-dezute astakeri aundiagorik? Europa'ko beste laterri guziak ori ikusita, nola jaramon egingo diote amerikanoeri, auek beren konbenientziagatik bai dabiltz konponketak egiten? Orregatik esan geinke, gaur egunean ez dagola ezertako siñismenik, idealismorik. Zein-gatik eman bakoitzak bere bizia? Askatasunagatik edo'ta, besteen ona gaitik? !Or daude milloikak il ziranak, beren ustez, askatasun origatik eman zuten izate guzia. Lurpetik igoko ba'lira berriro, zer esango lukee?

Esan geinke beraz, gaur egunean ez dagola ezer iñorgatik bizia emateko eta gutxiago jauntxo oiengatik. Pastelero ederrak daude oiek. Bien bitartean guda beti jaun ta jabe alderdi batzutan. Biafra'ko gizajoak dezeindu zirala? Polakoak sakabanatu zirala? Baltiko'ko laterriak urtu zirala? Europa'ko lur lapurketak egin zirala? Txepelak menperatu zituztela? Komunismoa kapitalistakin, besarkada dabiltzela? ONU'ko batuketak ezer ez dutela balio? Txinoak beti burrukan daudela rusoakin? Japoi berriro tramankuluz betetzen ari dala? Afrika'ko erailketak une guzian neurritzat daudela? Eta, zer? Ez da arritzekoa, gerekin ere burrukan ebiltzea, atxe dala, ta abar.

Ez naiz arritzen ere, bakoitzak bere etxetan alkartzeetan, edo senide artean burrukan ba'gabiltz. Ez nute arritzen ere, ikusten degun bezela, oraingo ezta-baidak elizako artaldeetan. Apaizak igeska, batzuk ezkontzen eta besteak utzirik jantziak, jantzi beltzak.

Noruntz dijoa ludia? Bide onetik ez beintzat. Emendik ogei urte barru... (ikusten ba'degu) ez dakit zer ikusteko gauden. Esan geinke, gaur egunontako jokaerak ez dirala gure sasoi artakoak. Bakoitzak egiñik nai duna, iñori jaramon egin gabe.

Orain zer, diot berriro? Zer esango da, berriro alkar gaizkisaka, izparringietan, batek au eta besteak ura, bakoitzak bere arrazoiak agerturik. Bien bitartean, beste guda azaldu dala, onako alderdian edo bestean? Eta zer, arroputzak beti iraungo dute beren tokian, bien bitartean emanik gizajoari alkar iltzeko tresnak. Milloikak iltzen dirala? ORKONPON

E. OZKIN

Egiztatu egizu zerorrez

BYASS 96

diñoen aiñako garaitsua dala...



GONZALEZ BYASS

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

ERRIETAKO BARRIAK

Usansolo

Adiskidearen eskutitza.—Alditxo bat da, gure Agur aldizkarian, Usansolo'ko gora beren artean, Ikastolarako laguntza eskatu genduala. Dei onegaitik edo, baleitike beste bide batzuegaitik be, dana dala, ainbat laguntza izan doguz. Danak bearko dira zeregin andia dago ta, baiña danen artean nire biotza dardarka ipiñi ebana, Formosa'tik artukoa izan zan.

Ez neban uste, *Agur* ain urrutira eltzen zanik, baiña gitxiago Formosa'n iñor gure deiagaz arduratuko zanik. Ta zelan arduratu.

Ez dakizu Etxeberria Jauna, zelango mesedea, zure eskutitzak egin daustan. Zenbat aldiz izan gara, dana bertan itxiteko asmoaz, askoren nagikeri ta norberekeriak ikusiaz, guk baiño geiago egin leikeenak, baiña gure nortasunari sorbaldea biurtzen dautseenak, kokoloak deituaz gure zeregiñak betetzen aleginduten gareanari.

Orregaitik zure itz bero ta mamintsuak irakurri nebazanean, aize barri bat sortu zan nire barruan, asiko arloan jarraitzeko. Ta itzen ganetik, zure izaera osoa.

Itz ederrak esatea gatx samarra ba'da, esanagaz norberen bizia betetzea, ez da erreza benetan. Norberen etxeko maitasuna itxi, ta atzerrikoen samintasunagaz atsekabetuten danak, orrek bai esan leikela zelan jarraitu.

Eskerrak Etxebarria Jauna, ta eskeiñi daustazun lez ez aiztu gure Usansolo, Jaungoikoaren laguntasunagaz, gure Erri zaletasun naiak bete daiguzan.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Segura

Gure Madura.—*Dala-ta, emen agertu ziran itz neurtuak, Olea'renak alegia, bati baiño geiagori olerki ori osorik ezagutzeko gogo biziak piztu ditu. Alaxe aitortu digute. Eta ez ori bakarrik baita, Madura ta Segura ezagutzeko gogoa eta gosea sortuerazi ere.*

Ona emen Olea'ren beste zatitxo bat:

«Ayek basoak, ayek soroak,
ura eguzki dizdira!
Txoraturikan gelditu nintzan
Segura aldera begira,
itxas-ertzian ibilli edo
naiz igo goiko mendira,
au bezelako leku politak
gutxitan ikusten dira.

Oi Segura'ko Madura kuttun,
eder ta zoragarria!
Ementxe zaude maitasun guziz
Jaungoiko berak jarria,
Gure begien atsegingarri
Zerutikan ekarria,
ni ezin beti ementxe bizi,
au da neretzat arria!

Ala dala siñisten ez ba'dezu, atoz Segura'ra! Eta ikusi ia Madura'ri eusteko arrazoirik degun ala ez! Zeorrek esan!

Eliz-berriak.—*Urteero bezela Korpus eguneko ibillaldia bikaiña izan zan. Bertakoa ez dan bati entzun nionez, ez da errex oberik iñun izaterik.*

Urrengo igandez emen «komentuko Korpus» deitzen zaiona egin zan eta ura ere oso ederki, eliz eder ura bete-beterik egon zan.

Gure eliz-parrokian Jesusen Biotzaren bederatziurrena aste ontan egiten ari dira, betiko bikaintasunez gaiñera egin ere. Urte osoko elizkizunik biñaiñena bederatziurren bukaerakoa izan oi da.

Gure irratia.—*Muturik bi urtez egon ondoren asi zaigu. Goierri guzia pozik dago irrati onen dei xamurra entzunik. Eziñ etsi genduan, izan ere, bera gabez.*

Zorionak Elgarresta Jaun langilleari eta bere laguntzaille aspergaitzei! Gure txalorik beroenak bijuazkioe!

Gure ustetan leengoan jarrai bear du. Ixilldu zutenean zana izaten, alegia.

Bere dei gozoak alaitu eta argitu bitza gure etxe guziak.

Joan zaizkigunak.—*Jaunak Beragana deitu berri dio emengo etxekoandre on Mikela Laskarai maiteari. Bere senar eta seme-alabaei gure samiñ agurrik barrukoena agertzen diegu. Zeruan izan dedilla.*

Mayatzaren 26'garrenean Donosti'n il zan bertan notariotzan urtetan zegon Mario Zubiaga Jaun argia. Jaiotzez Gernika'ko semea zan. Baiño emen umetan bizia, bere aita zana gure errian ogeitaka urtetan notariotzan ego zan-da. Gure illdegian bere sendikoak duten illobian eortzi zuten eta gure elizan ere illetak egin zizkaten. Otoitz bat, irakurle. Bere etxekoei eta batez ere gure aixkide Aira Zubiaga euskal izlari jatorrari samiñaldian biotzez laguntzen diogu. G. B.

Garagarrillaren lenengo egunez, berriz, il zitzakun «Eguzkitza» baserriko seme Inazio Mujika Alustiza, gazte-gazterik, ogei-ta-amabost urtetan. Bere illeta eta gorputzari laguntzean erriak argi azaldu zuan, zion maitasun beroa. Bere ama Prantziska eta etxeko beste guziei gure dolumiñik biotzekoena.

Baserri-gayak.—*Ederki astindu oi ditu Zarautz'ko albaitero jaun E. Zurutuza'k. Oso pozik irakurtzen dizkagu bere lanak. Oraiñ-oraintsu Donosti'ko egunkari batean agertu dituan biak ez dira nolanaikoak. Gaurko baserriaren ura, batez ere, izugarri atsegin izan zitzatan.*

Gai oiek geixego aizeatu bear lirakeala uste det.

MADURA-ZALE

Donosti

«AGUR»

Guda aurreko «ARGIA» gogorazten digu, uraxe bezela «H»-rik gabe txukun irarririk datorkigun Bilbao'ko «AGUR» asteroko izparringi eder-eder onek; eta egunetik-egunera Donsti'n eta Gipuzkoa guzin arpidedun eta ostantzeko irakurleak geitzen ari zaizkola, poz aundiz jakin degu. Izan ere, ezpairik gabe, ziurziur, asteroko au degu gaur-egun Euskalerria'n degun euskal-izparringirik jatorrena ta irakurgarriena, euskera erraz eta garbian idatzirik dakarzkin idazlan jakingarriengatik.

Oraiñago Elgeta'n alkartu ziran euskel-idazle zar eta gazteak, ederki garreztu zitun, gure «BASARRI»k, bere bertso mamitsu ta itzaldi sutsuarekin; euskeltzale egiazkoak geronok egiñalean «AGUR» indartzen eta zabaltzen alegindu bear degula adieraziz; eta ala gertatzen ari dala dirudi, eta euskeararen eutsigarrirako ain garrantzi aundiko egintza dan ekiñ au, benetan zaigu atsegingarri.

EUSKALTZAINDIA

Zurrumurruak diotenez, eun eta geiago euskaltzain eta laguntzaillek osatzen duten Euskal-Jakintz-Alkarte onek illero ospatu oi ditun Batzar'etara, amabiamalau batzarkide baizik ez omen dira biltzen, lengo Lendakari ooregarria zan Lekuona jauna maltzurkeriz bere zuzendaritzatik jaurtia izan zan ezkeroztik; eta arau-bidez laister Euskaltzaindia'ren Zuzendaritza, berritu bearra danez, ostera Lekuona jauna, Lendakari; Labaien jauna, bigarren lendakari, ta Aita Zabala, Idazkari, autetsiak izango ote diran diote...

Dana-dala, EUSKALTZAIÑEN PAKERAKO, eta EUSKERA'REN ONERAKO, izan bedi!

GAIXO

Gaixotasun larriaz, eriotz-zorian aurkitzen da 28 urteren buru gure idaz-lagun Etxaniz'tar Nemesi'ren zerbitzari leial izana dan Maritxu anderañoa. Poztuko giñake benetan, baldin Jainkoa'k berriro osasuneratuko ba'lu ain emakume on eta euskeltzale zintzoa.

Baitare, gaixoa egona da, sudurreko ater-eziñeko odol-jarioz, «IRUDIDUN ITXAS-IZTEGIA»ren egillea dan. Garmendia'tar Iñaki, itxasgizon ezaguna; baiña, Iruña'ko Osatetxe ospetsuan bearrezko zitzaion ostebakuntza egin ondoren, oso onik aurkitzen da, eta poztu gaitu berri atsegingarri onek.

URREZKO-EZTAIAK

Sendi arteko maitasunik opagarrienean, alaiki ospatu dituzte, beren «urrezkoeztaiak», «Zeleta»k eta bero emazte on Berasategi'tar Line'k. Seme-alaba, suiñ, billobak eta adiskide kutunak berekin zirala, Karmeldarren Elizan izan zuten ezkontz-meza, ederra, emaille, beren lengusua dan Aita Berasategi, eta laguntzaille, Aita Akesolo zala; eta aben itzaldi goxoen ondoren, olerki biotzukigarri bat oguzi zigun, Etxaniz jaunak, aldaretik, egiazko alkar-maitasunaren indarrak, Jainkoa'ren aurrerako, zenbat balio duen egoki asko adieraziaz.

ZORIONAK, daneri.

ETXEBESTE'TAR IÑAKI

Galdakano

Eleiza Barria.—Orain aldi andirik eztala idatzi genduban Bengoetxe'n noz edo noz txadon barria egingo dabela-ta, baiña, gauzak zelan doyazan ikusita barriz zerbait idatzi be arran aurkitzen gara, naita gure irakurleak pizkat aspertuko ete-doguzan bildur ba'gara be.

Eliz barri ori, orain ogei ta bost urte egiteko izan zan eta orretarako aldi artan leenengo arria ipiñi be bai, baiña, eztakigu zergaitik, egitekotan bakarrik geratu zan eta, urte batzuk geroago txadona egiteko zan lurretan etxe mordo bat egin. Ori bai, lurralde arein aldakuntzaz edo truke, bertatik ur beste lurralde egoki bat emonaz. Noiz edo bein txadon ori aipatuten ba'zan be, orretara, geldirik irauten eben bera egiteko lanak, egindizun andirik ikusten ez zala. Aldi ontan auzunean dogun apaiz jatorra, bertora etorri, ta laster asi zan, kementsu asi be, lanean eta danok uste geban, laster baten-lortuko zala auzune andi onek atsegiñez, benetan bearreko ebalako, artuko leuken txadona, baiña bildur gara orretara ezdala izango, ostoporik asko aurkitzen daituzalako apaiz adoretsu orrek.

Lenengo, Gotzaingo'ko eraikileen bitartez egitarau bi aurkeztu ebazan erriko eraikilletzan baiña, egitarau orrei akatsak aurkitzen ei-eutsezan eta, orduan erriko eraikilleari emotea eben, beronek ondoen uste eban erara egin daiteken. Gizon jakintsu onek, baiña, zer egin asko dituzalako bear ba'da, edo, ardura larregi artu eztabelako eginkizun orretzaz, dakiguna da aurrerakuntza gitxi egin dabela gai onek. Ez al da jazoko eginkizun onezaz aberatsan txakurrakin jazoten dana, berak jan ez eta jan nai dabenai jaten itxi ez? Elitzake txarto egondo apaiz onek beren eleiztarrai jazoten dan guztia azaldutea, jakin daien noren erruz egiten eztan ain bearreko daben txadona.

Jaiotza.—Orrilla'n azkenengo egunetan ikusi eben euren ezkontza osteko lenengo lorea Olalde'tar Joseba ta Biteri'tar Miren-Eukene senar-emazte gazte euskaltzale kiroldarrak, Usansolo'ko auzunean.

Kiroldarrak esan dogu ta orretaraxe dira, Miren-Eukene mendi-zale kenmentsua izan dan bitartean, Joseba otsarazko pelotari trebia dalako. Eta euskaltzaleak izanik, zelan ez! ugatzaukeran Ziortza eusko izen bikaña ipiñi dautse euren alabatxu kutunari. Zorionak AGUR'en bitartez eta, alegindu alaba ederra aziaz batera beneta-euskaltzalea izan daiten.

Ezkontza.—Garagarril onen 3'gn. ezkondu ziran Begoña'ko Ama'ren txadon apaiñean, erritar gazte Apellaniz'tar Endika eta Abasolo'tar Maite neskatilla liraiña. Eleizkizunak amaitu ta abopeko apain txukun bat artu ondoren erbeste zear urten ziran euren eztai-aldia igaroten. Zoriontsuak izango aal dira artu deben biziera barrian.

BASA-JAUN

Arratia

Zeanuri ta Dima'ren erdian. San Blas negu gogorrean ospatzen da. Baiña Zeanuri ta Dima'ko San Blas-zaleak bere eguna aldatu egin dabe. Neguan eta astegunez jai au egiten zanean oso gitxi joaten ziran baso-eleiza onetara. Iñoz, edurtza aundia zala-ta, iru baiño ez ziran joan. Baiña orain, batez be egualdia ona ba'da, santu onek zale asko izaten ditu.

Bagillaren lauan zan. Goizeko amarretan Soloeta'n alkartu giñan: Maiordomua, Kostan, Zeanuri'ko txistulariak eta gazte-taldea, Soloeta'ko ta Eleizondo'ko ta Zulaibar'go zar eta gazteak. Gorbei'tarra ez egoan euren artean. Zer jazo ete jako? Olakoeta'ra etorten zalea da ba bera!

Txapliegurik ezin bota, debekauta egoan-eta. Baiña alaitasuna ugari. Ordu orretan asi giñan igoten. Lenengo egotaldia Itzuen'en. Baserri bakarra. Artzain-etxea. Zugazti artean ostenduta... Bertakoakaz berba aldi bat egin eta aurrera. Gero aldatza zorrotzago. Azkenean Baso-eleizea aurrean: an txistu-jote pozgarriak, an zantzoak, an abestiak...

Gero Santuaren omenez mezea, Dimostarrak eta Zeanuristarrak alkarturik. Abesti ederrak... otoitzgogo bizia... eleizatxoa beterik, berbaldian onu gogoangarri batzuk: zarrak zamako miñaren arduraz, gazteak jai garbia egiteko gurariz, guztiok martiriari omen egitera. Nortzuk dira martiriak? Bizi zirala gorroto, il da gero santu lez goratuak izaten diran gizonak. Bizi ete da gure artean martirik? Guk be gorroto ete doguz? Ostekoak goralduko dabez.

Eta barriro txistu soiñua. An zan Areiaza'ko Zamakona txistularia be Zeanuri'ko bere ikasleen lagun, ango dantza-aldiak eta biribilketak...! Ardandegirik ez egoan. Beste urteetan ekarten izan ei dabe, baiña aurten... Eskerrak Soloeta'ko adiskideak arduratu zirana eta eurak eroan eben bear zan beste ardau zuri. Laster aumearen zozketea. Ipiñaburu'ra urten ei dau. Gure itxaropen guztia alperrik izan da. Jatordu eder bat egiteko ustean gengozan... baiña aumeak igesi.

Batzuk baskariakaz an geratu ziran, besteak eguerdi beranduan etxeetara.

Atzo artzaldean izandu giñan
lagun guztiok erromerian
ura bai gauza pozgarria
neskalil mosu gorria.
Artsalde guztian ibilli giñan
eusko dantza jatorrian...

GAMIZ

Arrasate

IBERDUERO

Bazkun onek iragarri bat ipiñi du bere emengo idazgelarako langille bat eskatuaz, baiña baldintza batzuen artean eskatzen du euskeraz jakin bear duala. Ederto ori Danok beste orrenbeste egingo ba'genu euskeraz jakiteko zaletasun geiago litzake.

«DANOK» ABESBATZA

Geldiune txiki baten ondoren, ostera barriztuta, ekin diote euren lan onugarriakin. Olan, Iruña'n izan dira ill onen 4'an eta garaipen aundia izan dute euren abets-saioa dala-ta. Txalo asko jaso zuten. Ill onen 29'an Irun'era juatekoak dira eta urrengo egunean Ezkoriatza'ra. Uste osoa dugu orreitan bere beste orrenbesteko gurenda izango dutela.

EMEN DAGO

Bai ementxe bere erri maite ontan dugu Sagasta'tar Yulen Erroma'ko Santa Maria eleiz-nagusiko organista entzute aundikoa. Bere bizi geiena Euskalerri' tik urruti bizi bear-izanagaitik, ez du aztutzen gure euskera maitea eta emen izaten dan guztietan euskera besterik ez du nai izaten erabilli. Ondo etorri Yulen maitea zure erritarren artera eta egun eder asko igaro zazula zeure sendi eta erritarren artean.

OSATEBAKUNTZA

Gure lagun eta «AGUR» onen arpidedun dan Arregi'tar Inu'k operaziño bat sufritu bear izan du, baiña au idazten naizen une ontan jakitun naiz ondo duala osatzera bere gexotasunean. Poztutzen naiz lagun Iñozkentzi.

BESAIDE'KOAK

Mendigoizale Alkarte onek ill onen 4'an izan zuten euren urteroko batzarra Udala auzoan. Bertaratu ostetza aundia eta euki zuten jai eder aretan izan ziran: Euskal-meza, «Lora-Zale» dantza taldearen saio bikañak, bazkaria eta mendigoizaleei igazko urtean irabazi zituzten, domiñak ezartzea eta abar. Eguraldi ederra, naiz-eta eguerdi inguruan zaparradatxoa bota, egun zoragarria benetan.

SANJUANAK

Au idazten naizen une ontan ez degu jaien eraketa berririk. Baiña uste dugu ill onen 18'an izango dala umeen Euskaljai aundia. Bertara, gutxienez, milla aur izando dira, Euskalerri'ko bazter askotatik, euren dantza alai, abesti eta soiñujotzaille aipatuakin. Gero zerbait pozgarri izango dugun itxaropena ba-dogu eta egualdiak laguntzen ba'dousku, asko jolasteko asmotan gara.

KORPUTZ-EGUNA

Eleizaren jai aundi au igaro zan aundikiro. Ez len bezin bero, baiña gaur egun ikusten diran gauzak ikusita gero etzan izan ain txarto. Ibildeuna bestetan baiño motzago, baiña enparantzan egin zan azken-jaia oso ederra izan zan.

«VOTO DE CENSURA»

Olan eskatu ei-eban euskaltzaindi batek, gure euskal-idazle Arenaza' tar Yosu'ren aurka. Ausardia bear-da ainbeste lan egiten duan, euskera saillean, gizon ospatzuaren aurka jaikitea. Jarrai Yosu maitea zure lan onuragarrian eta egia esateko ez bildurrik eta ez lotsarik izan. Zukin gagoz euzkotar asko eta aurrera!

AZOKA EMPARANTZA

Gure azpaldiko merkatu-plaza zaarra botaten ari dira. Bere lekuan umeenegurastokia ipiñiko ei-dute Izan-be toki egokia gai ortarako eta ortxe eukiko dute umetxoak egon leku atsegingarria.

UDALAITZ

INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

Euskal erriko ospetsuak

Olagibel eta Esnal'tar Nikola

1809'gnengo Lotazil'aren 6'gnean jayo zan Plentzi'n. Soiñez gogor eta itxas aizeak emoten dabezan osasun eta margo ederrez etorren mutilla. Ama alargunak, itxas-mutil izateko, Coruña'ra yoyan itxasontzi baten ipiñi eban. Coruña'n, beste itxasontzi andiago bat Manila'ra yoyala jakiñik, antxe sartu zan Olagibel, adore ta biotz kementsuz.

Bere bigarren itxas-ibilketa luze ta neketsuak ez eban bildurtu, ta Filipinas'ko uriburuak dituan kaietara eldurik, ango itxas-ontzi baten, bearra egitera sartu zan, bizimodua egin eta irabazte ta altxor batzuk eteratzeko asmoaz. Baiña bizimodu onetan irabazirik ez ebala-ta, Manila'n geratu zan. Emen, erritar salerostegi jabe aundikiak egozan, eta oneik Olabigel gaztearen doai, gaitasun baliotsuak ikusiaz, aolku ta diruz lagundu etsoen, salerosketak egiteko.

Aberkide ongilleak ez zirala oker egon laster agertu eutsen gure gazteak. Emon eutsoen eskuartekoekin eta berak eukazan diru altxor batzukaz itxasontzi eder bat erosi eban. Onegaz, ugarterik ugartera itxasoz ebillen, kai garrantzidun eta andietan adiskidetasunak egin eta aberastu zan.

Tamalez, ontzi-ondamen bitan diru ta eskuarteak galdu yakozan, baiña beingoan lengoratu be bere entzute on eta zintzotasunagaitik. Gora bera ta aldarte ostean, Zebu'ra joan zan, ta emen ugarteko neskatilla bategaz ezkondu. Baiña, zeruak emon eutson lagun au, ta ainbeste egiana bien ondasunak geiagotzeko, ugartean agerturiko beaztuneriak (cólera) besoetatik kendu ta eroan eutson illobira. Urte bi geroago, atsekabea garaituta, sendi aberatseko alaba gazte, Feliciana Tagle'gaz barriro ezkondu zan.

Gero ta geiago obetuaz yoyazan saleroste ta ondasunak. Alan be, errimiñak ez eutson itxi an egoten. 1847'gn urtean, naiko diru eginda, bere arazo ta dirubideak eskon-anai eban Gibelondo'tar Nikola'ri itxirik, etxerabide itxas-ibillaldia gertatu eban Bilbo'rantz. Aurretik, bere itxasontzi ederren biak, Veloz eta Zebuna, txinar eskulanez eta Ceylan'go igali ta arnariz eta beste zamaketa aberatsez bete-beterik bialdu ebazan, salerolea zan Rekakcetxea'tar Tiburzio'ren etxera.

Bilbo'ra etorri, begia bota, azterkatu, bertako saleroste ta ontzigintza egikizunak eta irabazpibideak gogoan artu, ekarritako zamaketea, ontzikada baliotsuak saldu, ta Zubu'ra biurtu zan emaztea ekarteko.

1848'gnean, urrengo urtean, Arenal'etik alboan dan Kale Barrian, idazgelea antolatuz, bere jardun eta ekiñalak bizkor ta indartsu artzen asi zan. Laster, Olagibel'en izena edonun zabaldu ta entzuten zan arrigarriz. Lenengo, urun salerosle jardunak Cuba'gaz egiteko, inguruko errotetako guztien artu-emonak itundu ta atondu ebazan. Gero, Ibaizabal'go ontzigille daneri itxas-ontziak egiezela agindu eutsen. A zan bizkortasuna, arin ibiltea! Urte gitxi barru, Olagibel, Bilbo'ko salerosle ta ontzidun goratsuena zan.

Nun aurkitu Olagibel aiñako gizon beargin eta ekinzale oberik? Aldi aretan, burdin-bidea egiteko naiak eta asmoak eukiezan Bilbo'n. Beiñola, Olagibel jaunak, Rekakoetxea ta Urrutikoetxea lagunekin ibilketan zala, oneiri esan eutsen: «Erdu, arren, nigaz udaletxera, nik neuk, beintzat, burdin-bidearen alde izenpetu gura dot». Eta an egozan danen ezuste ta arritasunean, orretarako zan liburuan, zenbaki ikaragarri au idatzi eban: Rvn. 2.000.000. «Orain, zuek, abertzale ta erri-guraso zarien ezkero, izenpetu egizue...» Eta Urrutikoetxea'k Rvn. 500.000 ra Rekakoetxea'k Rvn. 300.000 izenpetu ebezan. Egun gitxi geroago, uritik kanporo ta danen artean, 99.180.000 errial orreitako diruketea batu zan.

Baiña, azkenez, zoritxarrak eldu yakozan Olagibel andiki jaunari. Anai-guda zital iguingarria zala-ta, alde batetik, eta bestetik, bekaitzkeriz eta ezkerbagez, ondasun guzti-guztiak kendu eutsoezan. Jainkoaren baimenez, Job deunaren antzera, txiro-txiro geratu zan eta gaixorik ganera.

Urtez zamaturik, biotza suminduta ta soiña oiñazez beterik, bere alaba laztanaren etxean azkenengo egun itunak igaro ebazan, il arte.

Olagibel'en bizi-kondairea idatzi ta onen betiko atseden alde otoika illerrira lagundu eutson Juan E. Delmas'ek, gogoeta-filosofiz, auxe esaten eban:

«Sic transit gloria mundi». Mundu onetako aintza, olan igaroten da...

LETONA

HEINE OLERKARIA

Doistar olerkari ospetsu onek gure artean, nik dakidanez, iarraitzaille ugari izan ba'dauz bere, oraiñarte euskeratzaille esateko, bakar bat, besterik ez dau izan ta, berau, bizkaitarra. Erdi azturik ta, ia aintzakotzak bere artzen ez dogun gure *Arregi'tar Joseba*. Baiña txalogarria ta eredugarria da ta, aintzat artzekoa dogu «Bitarte» ta «Itzulia» ain txukunki euskeratu ebazan olerkari apal au.

Gure izkuntzan bat baiño geiago izan dira bai, doistar liriku dizdiratsu, errime, aundi onen antzera ta, bere olerkera eredetsu ta iaioari iarraituz; bere biotzondoa aztertu, urratuz, gure euskera landerraren baratz ta alorrera bere gazi-gezazko, bere irri-ixekazko landara sendo, giartsuak ekarteko alegin biziak egin ebezan olertizale maitemindu, bioztiak.

Auetako bat Satarka izan zan ta Aizkobel'tar Bingen bestea geien antzeratu ziranak. Gaztetasunaren eragin, sugar biziz; maitelillurazko olerki ereskoi, txanbeliñak idaztzi ebezan Hermes ta beste aldizkari batzuetan, euren biotz-barrengo iturri oparotsu ta, gardenaren gurari ta, amets-intziri bioztiak gozoro azalduz, euskaldun izakera lotsorrari dagokion samurtasun egoki ta apalez. Ona emen Aizkibel'tar Bingen'en neurtitz batzuk bere eguneroko lanerako bidean arkitzen eban neska ezezaunaren alkar-begiratze ixilla azalduz:

«Aurrez-aurre egunoro, igaroten garala— berak begiz joten nau— ta, nik begiz bera— eta, alditxuan biok— gagoz alkar begizka— ta, gero, beste barik— biok aurrera guaz— Bera nor dan ez dakit— ez berak ni nor nazan— ta, alkar ezautu barik— alkar ezaunak gara». Zer gauza apal ta ederragorik? Satarka'k bere, maite-olerki samur ta begiko asko itxi euskuzan urretxindor abotsez, bere gaztaroko egunetan.

Gure euskel olerti baratza ez da ez ain lander ta utsa. Tamalez, or illunpetan, baztertuta, sakabanatuta ta, aztuta, daukaguz bat baiño geiago. Beraz ikasi dagigun etxera begiratzen, etxekoa ikusi ta neurtzen. Ez beti kanpora begira ibilli, beti kanpokoa obeagoa dan ustez.

Heine'tar Endika'k gaztelar izkuntzan itzultzaille asko ta, trebeak bere, bat edo beste, izan ditu baiña, aurrena edo aurrenetikakoak Madrazo eta Florentino Sanz izan ei ziran. Auek itzulitako bidez, gaztelerrietan, beingo batean ta indartsu zabaldu ta aupatua izan zan doistar olerkari onen olerkera ta espiritua. Iarraitzailleak aneika izan ebazan baiña, oso gitxi aintzakotzat artzekoak, goi maillara igo ziranak.

Erdalerria, Dusseldorf'en iaio zan izar dizdiratsu onen lorratzetatik abiatu zan, doistar iturri barriko ur garden, ur ezea txastatuz. Doistar olerkari ta bere garaiko liriku goren onek, alako biotz-ikutu, maitasunezko ur-dario berbiztzaille, bizia zekarren bere, ezbai-zalantza, bere siñisgetasun, bere irudimen ta irri isekatsuz biotzak urduritu ta irabaziz... Biotzondo unkigarri, zabalaren eredu gorena dogu Heine olerkaria. Ta bere sispuru kezkati, bere musu bero, bere esakera irritsu ta gordiñez, bere amets-lillura irudikor, bere negarbarre sorgiñez beregandu ebazan erdel-baratzak.

Españar zaletasun orren bide erromantiku ta nabarmenez, ainbeste bertsogille gezeustan ta txepel artetik indar-berezizko izar bakan, olerkari zuztartsu, goi-arnasadun bat zan erdel barrutian: Gustavo Adolfo Becquer. Rima zoragarrien egille biozti ta aundia. Katalan izkuntzan Apeles Mestres olerkari ospetsuak itzulitako Intermezzo argiratu zan 1895'garren urtean Barzelona'ko urian.

Eta euskaldunok zer? Eskerrak Arregi'tar Joseba'ri euskera sentikor, samurrean, gure izkuntzara itzuliak izan ziran «Heine'ren Olerkiak» izenburuz. «Bitarte» ta, «Itzulia»k, osotzen dabe Bilbao'n 1927'gko Garilla'ren 20'an argiratu zan idazti bikain ori. Noiz argiratuko ete da barriz?

Arregi'ren bioztasunez euskerara txertatua dakusgu doistar liriku apartaren gogo ta olerkera berezia. Utsune ta akatzak izango ditu bai lan onek, baiña, akatz billa ibilli barik gu be, alegindu gaitezan euskera landu ta ikasten, euskera indartu ta edertzen.

Ta geiago luzatu barik emen dakartzuet «Bitarte»ko poematxu bat:

Larrosa, zitori,
Uso ta euskia,
Dana maite neban
Pozorrez aspaldi.
Ta gaur zeu bakarrik
Maite zaitur !ene
Zitori, larrosa,
Uso, euzki ori!

MUNIATEGI'TAR SABIN

Biziaren Ardurea

Biziak ardura aundia damosku guztioi. Bidezkoa da geugan daukagun bitxirik ederrenagaz arduratzea. Au, gizonak jakituriz bakar-bakarrik egin leikena da. Ta bizitza zaindu, edertu, ta maitasunez, aurrera eroaten alegintzen direnak, lagun arrigarriak dira gizadiaren aurrean.

Giza-bizitzak berak, bere barruan daroa argiaren, maitasinaren ta azkatasunaren eskabidea. Au norbere izateak eskatzen daben zerbait da. Edozelakoa ez da, barru barrukoa baiño. Itzalez artu bearrezkoa da edozeiñen izatea, sortzetik eskubide aundiak eta garbiak ditu-ta. Jatorriz, biziak eta biziaren sortzailleak damotsezan eskubideak dira.

Orain, lagunaren almen ta indar guztiak ezikuntza ta osotasunaren billa doaz. Izatez artu ditugun eder-gaiak, edertu egin bear ditugu. Ta beti, onaren elburua aurrean dogularik. Jokabide au geure izatasunak eskatzen dausku. Berezkoa da. Ori ez egitera, erri baten, nai sendi, nai lagunaren izatea, bere senean osotu bage geratuko litzake.

Ta au, olan iztea, zuzena ete da? Ez. Indarrik aundienaren eginbearra betetu barik geratu da. Lagunak ez dau artu berari dagokion ezi-bidea, sendiak ez dau ikusi berari zor jakon girorik, erriak lotuta, negarrez, bizitzaren azkenengo mailletan bear ba'da. Au al da bizitzaren tajua...

Guk geure eskuz bizitzarik iñori ez dautsagu emon. Gauzarik maitagarriena, itsuan artzen dogu, geuk jakinge, Gizona bere jakituriz, bizia sortzeko ez da gai. Ori dala-ta, egi onek bere sustraian, guri, gogoz itz egiten dausku.

Guri emon jakun biziak, artu dogun aritik jarraituteko agintzen dausku; berak dakarzan eskabideetatik. Au ez egitera, bizitzari iruzur dagitsogu, ta geure burua atzipetuten gabiltzaz. Gizonak, bere gisara, biziari arauak jarri ta bide barria emotea, eziña da. Gizonak bizia gozartu egiten dau, baiña jaubea ez da. Iñundik iñora be ez.

Emen baieztu dogun esakera au, argi argi, guztiok ikusten dogu. Orren aurka doazen irakatsi ta egitadak, sarri, itzez ta egitez baztertu ditugu. Ta ori ezin egin izan dogunean, gorrotoz, asarretu gara. Nor da ba gizona, gizona zapaltzeko, naiz dala diruz, naiz dala indarrez, naiz dala aundikeriz?

Orreen goikeriz bizia zuzendu leikela uste izatea, norberarena ez dan zerbaitegaz jaubetu nai izatea da. Arturiko bizia norberekerizko legeetara menperatzea, bidezkoa, iñoz ez da izango. Gizonen artean, sarri artu dan jokabidea da, baiña bizitza-egillearen aurrean, gaur arte ezagutu dan lapurretarik itzalena ez ete da...

SOLOZABAL'TAR PAULIN

ZER EDO ZER

FALLA'REN ZIÑESMENA.—Manuel Falla, ereslari benetan ospetsua izen zan, baita katoliko zintzoa be. Kaperotxipi, zarauztar margolari ospetsuak Uranga'tar Paul'en bizitzan diñoskunez, Zuloaga, eibartar margolari ospetsua il zanean, onen alargunari, Falla'k Arjentina'ko Alta-Gracia'tik samin-agur au bialdu eutson: «Zeuok daukozuen gozogarri berbera somatzen dot eta auxe da: bere kristiñau zintzotasun sendoa, geuria langoxea eukolako Yaungoikoaren ontasunez betiko bizitzan ikusiko gareala». Manuel Falla.

«Nire lagun batek» diño Kaperotxipi'k, «beste bizitzea aitatuten neutson bakotxean auxe esaten eban: Atsoen kontuak, burudun gizonak ziñesten ez dituenak».

«Eta Falla, nik erantzuten neutson, ez daustazu esango adimen andi ta burutsua ez danik».

«Ba, Falla'ren samin-agur orrek bere bizitza aldatu eban. Oldozten eta oldozten asi zan eta guztiok arrituta gelditu giñan konbentu batera «lego» sartu zala yakin genduanean».

DANTE'REN IZAKEREA.—(1265-1321). Dante Aleghieri, ezpai barik, munduan izan dan olerkari ospetsuena izan zan. Bere idazti guztien artean «La Divina Commedia» ezagunena. Atalka idatzi ta bere olerkiak erriko yenteak buruz ikasi ta eurrez abestuten ebezan.

Egun baten, su-aroztegi baten aurretik igarotean bertako ugazabak bere olerkiak abestuten ebazala oartu eban. Baiña ain ganora barik eta zusterbarik abestuten zitualako, asarre biziz bere lantegira sartu ta tresna guztiak goikoz bera nastatzen asi zan. Errementaria arrituta geratu zan, eta zoroen bat zalakoan, esan eutson: «Gizona, zetan diarduzu tresna guztiak nastetan?»

Eta Dante'k erantzun eutson: «Eta zeuk zetan diarduzu, nere bertsoak ganora barik abestuta alperrik galtzen?» Ez zan izakera epelekoa izan be.

GAMA

AGUR

III URTEA
45 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - GARILLA - 1

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

KIROLAK

Gure gizartea aundi-zalea dogu. Gauza guztiak aunditasunez edo aundikeriz egitea gura dau. Eta lortu egiten dau: aundiak saltokiak, aundiak dantza-lekuak, aundiak eleizak, aundiak batzarrak, aundiak ikastetxeak, aundia gizadia bera...

Orreik, berak aundi nai ditun gauzak. Baiña berak txiki nai leukezan beste gauza asko be aundi egiten jakoz: aundia gosea, aundiak gudak, aundiak lapurretak, aundiak gaizo-etxeak, aundiak ilerriak...

Kirolak eta kirol-tokiak be aunditasun ori lortu dabe gizarte onetan. Zelako jentetzak ostikolarien zelaietara edo zezen-plazetara! Nork neurtu ikusleen ugaritasuna ta orretarako eurak daben gogo bizia!

* * *

Eta ortik sortzen da barri-bideetan kirolak daben garrantzia. Zenbat ordu ete daroez irratieten, urrutikuskiñetan... zenbat lan eta diru izaparringietan...!

Gizonak kirolak bear ditu. Egia da. Eta geroago ta geiago bear be.

Gaur lan asko gorputza geldi edo erdi geldi dala egiten da. Ori gorputzarentzat kaltegarri da. Gorputz ori apur bat astintzeko eragiña bear, kirolak bear, eta or doaz zarrak eta gazteak mendira edo ondartzara edo kiroletara.

Baita ordu askeak be geroago eta geiago dira. Zelan bete ordu aske orreik? Irakurten gogaitu, idazteko zaletasunik ez, egote-egotean be laster naikotu... zer egin? Kirolak ikusi, jolasak egin... Orretarako sariketak, zabalkundea, barri-bideak artu bear.

* * *

Bere maillan izan ezkero, kirol-zaletasun au txalogarria da eta alderdi on asko ditu. Baiña, zori txarrez, beste gauza asko lez, au be gizarteak bere maillatik atera dau eta erabilli bear ez dan lez darabil.

Gaur kirol-zaletasuna ainbestekoa ba' da eta orretarako barri-bideak ainbeste lan egiten ba'dabe, sarritan beintzat, asmo okerren batzuk nastean diralako dala dirudi, ta da.


Ardura sakonagoetatik eta bearrezkoagoetatik gizona atera gura dabe. Erriaren ardurea itzi daigula, beste batzuk euren erara zuzendu dagien; sendi-ardurea bera ta gaztediaren eziketa arazoa iñoren eskuetan dala pozik egon gaitezala; erlejiño-ardurea gitxirena ta ganorabakoa izan daitela, gaurkotu barik, erriratu barik; ekonomi-arazoa dirudunen eskuetan izan daitela... orra or askoren gurariak. Era orrek lortzeko kirolak ugaritu, kirolez gizonen ardurak betetu.

Eta jokabide au gaurko asmakizuna danik ez uste izan. Antxiñako azpikeri zarra dogu. Erromatarrak eurak, joputzan eta nekeetan bizi ziranak poztuteko zer egiten eben? Euren buruak askatutzat eukezan gizon asko ezetan sartu barik egotea zelan lortzen eben orduko jauntxuak? Kirolak ugarituaz, ikusgaiak geiagotuaz. Erroma'ko erri zeak ez eban besterik eskatzen: ogia ta kirolak.

Gaur be olako arriskurik ba dogu: txiroai jana ta kirolak, zurrai ta aberatsai jabetasuna, dirua... dana.

Au bai au benetako lo-bedarra, au bai au benetako drogea.

AGUR



Ta, nire ardiak ezagutzen nabe!

ARTZAIN ONAREN GOMUTAZ

XXIII Yon'en aitasantutza oso laburra izan zan. (1958-1963). Baiña bai ain aldi laburrean betea be. Bere izakera ta esakera, berak egin eta eragin ebanak guztien biotzak beragandu zituan. Eleiz-edestian bear ba'da ez da izango Aita Santurik, berau baiño begikoago, maitetuago ta txalotuago izan danik.

78 urte eukozala Aita Santu egin eben eta ez eben uste gauza andirik egingo ebanik. Baiña laster arritu ziran ori uste ebenak. Bere lenengo asmoa, Eleizaren barrizkundea izan zan, berak esaten eban lez «gaurko eguneratzea». Zertarako? Gizadi guztian Eleizak eragipen geyago izan dagian. Zelan? Lenengo, Eleiz-Batzar Nagusi baten bidez. Asmo ori bere inguru eukozan 19 kardenaleri agertuta, «Zer deritxozue»? itandu eutsenean, batek be ezer ez eutson erantzun, arrituta danak ixildu ziran. Izan be ez zan buruauste makala, lurbira guztiko ia 3.000 gotzaiñei deitu ta Erroma'n Eleiz-Batzar luze bat egitea!

Alan da be, bere asmoa aurrera eroan eban. Tamalez, Batikano'ko II Eleiz-Batzarra amaitu baiño len il zan.

XXIII Yon benetan on, yakintsu, adorestu, zur, lau eta apala izan zan. Bere Enziklika ospetsuenak «Mater et Magistra» *(Ama ta Irakasle) eta* «Pacem in Terris» *(Bakea Lurrean) izan ziran, alde guztietan ondo artuak eta txalotuak izan ziran. Egia esateko, txaloak yotea ez da naikoa...*

Agiri orreitan gizarte auzia, gizon bakoitzaren eta errien eskubideak. aizea astintzen astia galdu barik, argi ta garbi azaldu zituan. Ta yakiña, egin bearrak be bai. Gaurko eguneko naspil eta aitu eziñak zuzentzeko irakatsi argi, sakon eta egizkoak emon zituan eta ziñestebakoen txaloak irabazi be bai. Eta kristiñau guztien batasunerako egin zituan alegiñak nok zenbatu? Eta espetxetuak, gexorik eta zoritxarrean, kistar-maitasunik samurrenagaz ikertu zituanean, nor gelditu zan biotz-zirkiñik somau barik? Nor agertu da gizon guztiakaz adizkideago, lau eta maitekorrago? Eta azkenez, nor ez zan arrituta gelditu, bere azkenengo gexoan eta eriotzaldian agertu zituan, eroapen, otzatasun, alaitasun eta bakezko yarraibideakaz?

BERE GOGO-BIZITZA SAKONA

Benetan sakona izan zan, txikitatik asita Aita Santu egin eben arte, bere idazti «Arimaren Egunkari» ta bere anai eta etxekoei zuzendu eutsezan 727 eskutitz edo kartetan. Idazti biok erderaz argitaldu dira.

AITA SANTU YON'EN BEGIKOTASUNA

Orrez gaiñera XXIII Yon'en aldarte, gogo argi ta umore onak mundu guztia birloratuta itxi eban. Buru askotan sartuta egoan Aita Santuak itzaltsuak izan bear ebela, nonbait gizon be ba-zala gomutatzen ez ziralako. Bere urteera zur eta zorrotzak, erdi irribarezko esanak zirala-ta guztion etxeko zala zirudian.

Orixe dala-ta, gaurko bizitzako larritasun artean, baikor izatea galdu ez daigun, Yon Aita Santuaren «Egiñak eta esanak» lora txorta baten antzera, bera il aurretik pillatutea otu yatan izdatiño baten argitaltzeko asmoz. Orain arte aukerarik ez dot izan eta AGUR'en atalka argitaltzea otu yat. Guztiak emengo ta erbesteko aldizkari ta idaztietik artuak dira. Onen antzeko lan bat Prantzia'n Henri Fesquet'ek «Les Fioretti du Bon Pape Jean» *eta Alamania'n Kurt Klinger, protestanteak* «Ein Papst Lacht» *(Barre dagian Aita Santu bat) Biak erderatuta dagoz. Aita Santu egin aurretikoetatik asiko gara. Egunokaz bere eriotzatik bederatzi urte bete dira, ta bere gomuta aintzagarrirako argitaratuko doguz...*

MANTEROLA'TAR GABIREL

ZUEK OR, GU EMEN

Zerbait ikasi dagidan-edo, korreoz, erderaz eta multikopistan egindako orri mordo bat jaso dot. 1970'gn urtean Baiona'ko euskal astean emondako itzaldi bat dakar. Urrengo orrietan, lengo ta gaurko idazleen zerrenda luze bat agertzen dabe; jakiña, batzuk lurrun artean, besteak «intzentzuz» goraldurik, eta beste batzun izenik be ez.

Ez dakit, itz-aldi orren barri emoteak egin dabezanak zelako asmoagaz egin daben, edo obeto esateko, bai. Erriari eta gaztediari kultur arloan bide bat erakusteko, gure aurretik izan diran errizale guztien ekiñaldiak nabarmenduz, lurperatzeko.

Baiña, beti lez, eta ez gara iñoiz ixilduko, anka sartezik aundiena egiten dabe: erri osoaren eskuetan dagozan kultura gaiak politika arazoz nastatu; euskal ikastoletako 12 milla ume, andereiño, aldizkari ta abar, politikalari «jakintsu ta trebeen» gidaritza pean ipiñi bear dirala edo dagozala idatziz ta erderaz ixilleko panfleto baten argitaratu.

Zein da egilleen asmoa, laguntzea ala urte askotan egindako lana, lan ederra, egun batetik bestera ondatzea? Ez dira konturatzen, lendik berez larria dan ikastolen egoereak ez dabela orrelako salakuntza ganorabakoen bear-izanik? Ta, egia dan ala ez, aztertu barik, zigorrik ba'letor... zer lortu dozue? Gure umeak euskerea ta euskeran ikasteko erea galduko leukeela, ta ez besterik. Nor izango litzake errudun?

Orrez gaiñera, ba-ditu itzaldi orrek ainbat ametskeri ta laprastada. Izkuntz eta kultur nortasunen arloan, Euskal-Erria, Finlandia, Txekoslobakia ta Israel'egaz bardintzen ditu. Ez da konturatzen aurki, erri orrein izakerea, kondairea ta giroa oso ezbardiñak diranik. Baiña ezin geinkez sakontzen asi emen. Begiratu bei irakurleak bere inguruan eta ikusi bei ea gure gizartea ta israeldarren Palestina'ko alkarte bereziak bardiñak diran, kultura baten sakontzeko eskubide bardiñak daukazen. Ori ez ikusteko itsua edo beste mundu baten bizi dan ametslaria izan bear.

Itzaliak, gero, gure baserritarrak astintzen ditu. Orain arteko euskaltzaleak baserriko euskereari begira egon ei-dira, baiña, orren ustez, baserritarren euskerea ez ei-da ezertarako gauza. Baserritarrak «mitiko» ta «apatiko» dirala, baserritarren euskerea alde batera itzirik, Bilbo'ko ta beste kaletarrak irabazi bear ei-dira. Oneik izango ei-dira euskerearen berbiztailleak.

Irakurle, banaka batzuena izan ezik, zoritxarrez, kaletar askoren euskereak ez dautsu belarriko miñik emoten? Jatortasunaren billa, ez ei-dozu baserrira jo bearrik? Orrela, lengo konplejuen gaiñetik, baserritarrari euskerarik ez dakiala esan bear ete-jako? Alan dirudi, alako burugabekeriak irakurri ezkero, baiña bada ez bada, «euskeranto»aren irakaslerik geienak, abadekiak izandako baserritarren umeak dozuz. Baserrian ez ei-da euskal kontzientziarik izan. Ba-liteke, baiña euskerea baserriari esker gorde danik ezin ukatu!

Azkenez, itzlariak, euskera «batua» derrigor eta abiandan sartu-erazo bear dala diño. Euskereak berak ez ei-dau etorkizunik: «y nuestro pueblo, nuestra juventud y sobre todo los intelectuales deberán llegar hasta el meollo en la unificación y preparación del euskera. Hemos tomado como guía, por jefe a Michelana y creemos que bajo sus directrices realizaremos el trabajo más adecuado y conveniente. Por lo tanto un rotundo sí a las decisiones de Aranzazu y al propio Michelena».

Ez da arritzekoa, olako loren usain gozoak gure Michelena zorabiatzea. Orrenbeste lurrunen artean «jefetzat» artu dabenen morroi dala esango neuke nik; ez dakit «altza Pelipe trula la» ala «los del amaika» abestu bearko dogun, baiña or dago euskera «batu» baten edo biren «gahulettier»a. «Batasunerako ez da eperik gorde bear... Ez dago atzera begiratu bearrik...egingo da ta kito!»

Neurriak ondo artu barik, erderazko «aprendices de brujo» diralako, sasi-izkuntzalarien konponketak txarto urtengo ba' leukee... nor errudun? Euskera biziari, erriarenari, bizkarra emon eta «intelektualenari» eskua emon ondoren dana galtzen ba'da, nor errudun? Ala Bilbaina'n esan eban lez: «si se va a perder el euskera, que más da que se pierda 20 años antes», onartu bearko ete-dogu? Niri beintzat dardarakada galanta eragin eustan «batu» aren «kerenski» arek esandako itzak... eta gero Mokoroa atzeratua egoala entzun bear... edo Unamuno'k, arrokeriz, ez ebala atzera oinkadarik egin nai... geroak erantzuna!

Bitartean zuek or eta gu, ezjakiñok, emen.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

ARA LAN EDERRA!

Barandiaran'dar Joxe Mikel jaunaren deia entzun genduanean, ososoan sumatu gendun orren garrantzi andia, ta ala esan gendun. Ta ez esan bakarrik, bertan bera idatzi be bai berari, AGUR onetako irakurleei argitasun obeak emon eta zer egin aurkitu eziñik dabiltzan gazte jakintza-gosetuei euren eginbearrak nola bete erakusteko. Ataun'dik jaso dogu gaur idazki au, ta jaun agurgarri orren azalpenak zeuen aurrean jarri-guraz, ariñeketa baten irarkolara bialdu ta emen agertzen dautsuguz. Bere itz jakintsu orren aurrean ixildu nadin. Xabier.

«Goirigolzarri'tar Xabier jaunari.

Deustu'ko Ikastola-nagusian berriki egin nuen itzaldiari buruz xeetasunak galdetzen dizkidazu. Aldi artako nere gogoeta laburki agertuko dautzut. Ara emen.


Euskaldun izatea zer ote dan galdezka ari gera sarritan. Bidezko eta bearrezko galdea ori euskaldunen artean. Gure burua, gure etxea eta gure erria ezagutzeak bizikera nola eraendu erakus legiguke, baita geren etorkizunari dagokion bidea obeto ebaki ere. Bakoitzak bere kemen eta indarrak jatorrizko arian erabiltzea baita egokiena eta aurrekorrena, dirudienez beintzat. Baiñan ez dijoa ortik nere gaurko eginkizuna.

Bestalde, ezaguera orrek eraiki lezake gure izkuntza edo, gutxienaz, gai ortan gure jakiundaren astapenak oiñarritu. Orrengatik, euskal-etniari buruz aspaldi lanean —ikuska— asiak, gaurko ikasbideari dagokion eran berriki azterketak eraentzen ari gera: ETNIKER izeneko ekiñaldia alegia. Naparroa'n Araba'n Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n ba-ditugu ikerlariak iadan bearrean ari diranak.

Baten edo bien lana ez baita au, orregatik aldrak edo taldeak eraendu ditugu... Naparroa'n, esate baterako, amairu lagun —bakoitza bere errian— ari dira lanbide ortan. Lanen berri elkarri adierazteko, noizean bein Iruña'n biltzen dira. Beren ikerketak errez eta zuzenago egiteko, ba-dituzte galde saillak: etxe eta etxekoezaz, auzo eta erriezaz, bizigaillu, eginkizun, oikunde eta gizabideazaz, etab. Ikerlari guztiak erantzuten dutelarik, jakingo degu sakonago Naparroa'n jatorrizko ezikera edo etnia nolakoa dan. Beste eskualdeetan ere berdin. (Orain zure galderak):

—Aldrak zelan egiteko asmoa dozu?

—Eskualde batean —Bizkaia'n, adibidez— diran ibar-nagusi bakoitzak ikerle bat duela, ibar oietako ikerleak egiten dute aldra bat.



—Bizkaia'n zenbat lagun inguru bear ete dira aldra au osotzeko?

—Amabost ikerlari, gutxi gora-bera, aski lirake, alderdi auetakoak: Bilbo, Abanto, Labarrieta, Orduña, Plentzia-Meñaka, Bermeo, Gorozika, Lekeitio, Zenarruza, Ermua, Axpe-Arrazola, Dima, Otxandiano, Orozko.

—Ze garrantzi euki leike onek biarko gaztediarentzat?

—Biarko gazteak eta zaarrak jakingo dute Euskalerria, makiña-garaiaren leenurrats nagusiak nabari zirelarik, nolakoa zen eta beren jatorrizko ezikerak zelako aria zekarren.

—Zenbat denpora eroango dautsu aldra au osotzen?

—Aldrak osotzen aski erreza da. Badira azterketak egiteko itza emango luketenak.

Gero egitaraua bear bezela osotzea da bakoitzarentzat aski zailla.

—Ze erri edo uritan egin da au?

—Euskalerrian ez da aski azterketa egin gaurdaiño. Ba-dira ordea, an-emen, monografia batzuek egiñak edota asiak: Lagina'n, Uart-Mixe'n, Doneztebiri'n, Luzaide'n, Aezkoa'n, Larraul'en, Amezkoa'n, Artajona'n, Obekuri-Bajauri'n, Sara'n, Ataun'en, etab. Gutxi da.

—Zelan egingo zeuskio dei bat Bizkai'ko gazteai onetan lagundu dagitsuen?

—Gai ontan bear bezela ikerketak egiteko, leenik etnologiari buruz zerbait ikaskuntza egitea bearrezkoa da: gutxi dakienak gutxi ikusten du. Orregatik obea da ikastola-nagusietan edo beste era batez gai auek erabilli dituztenai deia egitea, bakoitzari bere izenaz. Denekin batzar bat egin or Bilbo'ko biltoki batean —Museoan, Ikastola-nagusian, Diputazio'ko jauregian...— bertan egitarauaren xeetasunak agertu, bakoitzari galde saila eman eta bereala asi. Bizpairu urtean lan aundia egin gentzake.

—Ze inbestigazio egiten zagoz orain?

—Etnologi-gaietan, Sara'ko eta Ataun' go erriezaz ikerketak egiten ari naiz aspaldian; Eusko-Folklore **gertutzen ere bai (1921'az gero argitarazten detana); Naparro'ko, Araba'ko eta Gipuzkoa'ko ikerlariai laguntzen, etab.**

BARANDIARAN'DAR JOXE MIKEL

ERTIA

«APELES» Akademi'ko ikasleen III Erakusketa.

San Juanak bertan ditugu, oso bertan ta emen Tolosa'n. «Pablo Gorosabel» Ikastoletan, APELES Akademi'ko ikasleak —berrogeiren bat— margoariak denak, beren laukiak, ur-margo-marrazki ta oleoak azalduko dituzte.

Neska-mutillak zoratzen daude noski, ta gu, oraindik geiago, agerketa ori Picasso'rena ez izan arren —ezta bear ere.

Azken bederatzi illabete abetan, astero bi aldiz, gogoz eta gogor lan egin dute ikasle azkarrak, denak txikiak. Ta orain ba dute, bai, uda osoa atseden pixkat artzeko!

Ta gero, datorren Urrillan, Jainkoak lagun, auxen da egizko nagusia, berriz asiko gera, poz, itxaropen eta lilluraz beteta... bakarbakarrik.

Denak Euskera ta Euskal kultura pixkanaka-pixkanaka baztarretan sartzen saiatzen ba'gera —gauzak poliki-poliki egin bear dira, aldaketa ona izateko mantzo izan bear du— zerbait egingo degu bai. Irabazirik ez degu izango ez. Euskerarekin ez da iñor aberasten. Ez al da ala?

Baiñan botatako aziak fruituak emango ditu; «Pablo Gorosabel» ikastoletan or gelditzen dira larogeiren bat lauki, ormatik urkatuta, iltzailleak bezela... zuen zai!

Sarri arte ba, bilbotar anaiak, ta aupa Sanjuan! Ta aupa Bilbao! Amaia Aulestia'k arrazoia ote du, goxo-goxo abestun dunean:

«Oraingo gizonak
izango al dute
dirua beste ametsik?»

Zer diote gure artean bizi diran ainbeste ta ainbeste «burges» berriak? «Marxistak» ere al duten ondoen bizi dira, bai! Bestela ikusi inguruan eta mundu zabalean. Ez al da egia?

MATXIN

SASKI - NASKI

Donosti'ko Erri-Irratian euskera asko entzuten degu; au pozgarria da noski, baiña... berriz ere nere «baiñak»!: Gipuzkoarrak ez al degu gure irratian gipuzkera entzuteko eskubiderik? EUSKERA entzuteko eskubiderik?

Irratian lanean ari diran asko, nere ustez, jatorrak dira, baiña «euskeranto» aldekoak darabilte, itxuraz, orko arazoa, geiena beintzat, eta gutxitan entzuten degu EUSKERA.

Askotan ikusten da «oien» eskua. Astero Z-A aitatzen dute, bertako idazlanen berri emanaz. Itxuraz, oraindik ez dituzte ezagutzen «Goiz Argi», «Agur» «Karmel» izeneko aldizkariak, edo euskeraz diranik etzaie iruditzen; zergatik ote?

Lengoan «Redención» aldizkariak, euskeraz dakarren atala ere aitatu zuten. Au ere bere «h» polit eta guzi bai dator! Baiña len aitatu ditudanak, naiz ta *guztia euskeraz* izan, ez dira Erri-Irratian aitatu ere egiteko gauza!

Au guzia naikoa ez dala (len ere aitatua det baiña...) beste gauza bat ere ba-degu. Kristau giroko ez diran abestiak entzun bearra. Erri-Irratia, nere ustez, kristaua degu, kristau girokoa; nola diteke orduan orrelakorik onartzea? Kristautasunaren, siñismenaren aurkako ezer onartzea, euskeraz izan arren? Nik ezin ulertu!

Aurreko nere lanari jarraituz, lengo idaztien zatiak birridatziko dizkizuet.

Onekin, bein eta berriz, au adierazi nai nuke: orain arte ezer egin ez dala (jakintza, euskal jakintza gaiean) diotenak gezurretan ari dirala. Lengoak, *orain alde batera utzi nai dituzten, lengoak*, egin zuten guzia egin ez ba'lute, gaur euskeraz edo «euskerantoz» ari diran oiek, ez luketela euskeraz idatzi zitekenik ere jakingo.

Lenengo zatia Mujika'tar Tene'k idatzitako antzerkitik artua dezute, «Gogo-Oñazeak» antzerkitik:

«Goizero beroiei begira egoten naiz. Ura bikoitz ederra! Anderetxo Elixabete bera ain lirain ederra, eta senar-gaia baita ain gizaseme bikaña! Ona ta aberatsa dala dasate guziak... Zergatik ba Antxeta jauna ezkontza orren aurka?»

Zer derizkiozute? Ez al da au euskera ederra, eta euskaldunak ulertzeko, errex ulertzeko erakoa?

Orain «Kardaberaz» aldizkaritik beste zatia. 1936'gn Otsailla'ko, 8'gn zenbakia. Oraingo zatia ez da ain erreza izango, baiña ez euskera zailla dalako, gaia bera jakintsuentzat, gai ontan jakintsu diranentzat, dalako baizik. Au izkera guzitan gertatzen da; ez det uste edozeiñek «filosofía» - «matemáticas» edo orrelako gairik ulertu dezakenik, ez euskeraz ez pantzeraz eta ez beste edozein izkuntzetan.

Orain dijoakizuten idazlana, naiz ta 1936'gn urtean idatzia izan, oso «gaurkoa» degu eta onegatik zatika, osoa, birridatziko dizuet. Gai ontan astakeriak esaten zituztenak ba-genitun nunbait, orduan ere.

«ENDA-IZTI»

Sendiaren sorkuna.

«Agur irakurle. Sendiaren sorkuna det gaurkoan jardungai.

Iritxi bardingerik ba-da beroni buruz. Amaika astakeri esanak ba-dira sendiaren sorkuna dala ta.

Basati talde edo «horda» dalakoa dauke batzuk sendiaren iturburutzat. Basati-talde ori endakatuz gero sortua sendia, euren ustez.

Basati-talde bat besterik ezegoan.

Iñoenez gizaldi asieran etzan sendirik. Abere eran bizi oi ziran. Idekoak gizon ta emakume. Guztiak guztientzako» (jarraitzeko).

Irakurle, esan au, jakintza pixka bat dunak ederki ulertzen ez dun; eta ikusi 1936 artekoak euskeraz edozein gai erabiltzen asiak zirala, eta EUSKERAZ, ontarako bear ziran itzak sortuta, izkuntza guziak egin oi duten eta egin bear duten eran. Ez orain bezela, jakintza gaiak erabiltzeko, itz erdeldunez guzia josiaz, euskera orretarako gai ez ba'litz bezela.

Gaia ere, ikusi dezutenez, oso gaurkoa degu. Gure errian ezpaitzan azken urte auek arte, orain bezela, sendi arazoan (eta beste askotan) idazlan ontan dion astakeririk ainbeste zabaldu. Irakurri ba arretaz, eta urrengoan jarraituko.

Idazki onen idazburua zer iruditzen zaizu? ENDAIZTI, ez al da au ETNOLOGIA baiño askoz gureagoa? Iñork esan al dezake, egiz, ETNOLOGIA eta orrelakoak erabilli bear ditugula euskera gaizkatzeko? (salbatzeko?)

«Kardaberaz» aldizkari ontan bertan, beste gai asko ba-dira, noski. Idazburuak emango dizkizuet.

«Pisia» (física) - Orizti (ontología) - Lutizti (Geología) - Bizizti (Biología) - Gizaizti (Sociología) - Edesti-aurre (Prehistoria). Edesti (Historia).

Zer derizkiozute? Au guzia, berriz esanda ere, 1936'gn. Otsailla'n idatzia da. Gero gertatu zana izan ez ba'genu, orain euskera edozein izkuntzaren kideko genuke, zernaitzaz jardunteko. Orain *norbaitzuk* diotenez, lan au guzia egin zigutenak omen ditugu gaurko euskera egoeraren errudun. Baiña *berai* eskerrak, laster euskera ondo «jantzia» ikusiko degu. Bestela, «euskeranto» idazkeraren eredu batzuek ikusi besterik ez degu:

«Komunikabidea» - «Euskal ETNOLOGIA eta ETNOGRAFIAZKO aldizkaria»e. a. Lengoak txoro utsak genitun nunbait; orain ez degu orrelako buru-austerik! ENDAIZTI-BIZIZTI zer da ori? ETNOLOGIA-BIOLOGIA esan besterik ez ta... Beste oiek «neologismoa», «neologismo»uts utsa... Utikan *lengoen txorakeriak!*

* * *

Lengo igandean eta aurrekoan, aurtxoen Lenengo Jaunartzean izan nintzan. Pasai San Pedro'n bata eta Donosti'n bestea.

Gauza zoragarria benetan. Ainbeste siñisgabekeri, Jainko ukatze, birau eta zabarkeri artean, onelako elizkizunak pozgarriak ditugu, oso pozgarriak.

Otoitzak... apaizen itzaldiak... abestiak... guztia *euskera* ederrean, goxoan... Aurrak berak abestu ta irakurri zituztenak batez ere... biotza samurtuta irten nintzan!

Guzia bukatu ta gero, auxe nerabilkin buruan: «gure aurtxo oiek, neska-mutil gazte egindakoan, eutsiko ote diote siñismen orri? «Gu guzion laguntza izango ote dute beren siñismenean jarraitzeko?» «Gure laguntza» esan det. Ezpaitakit oraingo gazteak «gure laguntza» naikoa izan ote duten. Guk gure aurrekoengandik izan genun aiñakoa, bai? Arritzekoa baita, azken urte auetan gertatu dana! Egia da, bai, INDAR aundiak dabiltzala, ludi osoan Kristautasunaren aurka eta batez ere Eliza Katolikoa'ren aurka; Baiña ez ote degu «ain gazte» ez geranok errua, zerbait beiñepein, oraingo gertaeretan? Egin dezagun guzion azterketa, eta jarri dezagun gero gure aletxoa laster gazte izango diran aur oiek siñismenean, sendo, iraun dezaten!

AMALE'K

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

IDAZTEGI~IRARKOLA
EUZKERAZKO~IDAZTIAK
VERDES
CORREO 7 ☎ 212903
BILBAO-5

GAZTE ERANTZUNA

Jorraillaren ogei ta betzian, ogeita amaseigarren zenbakian, «Apaiz izandako bateri» izenbuarekin, nik bidalitako lan bat argitaratu zen AGUR'en.

Orain, apaiz izandako bat, etorri da nere lanaren erdiari, erantzun gisako zerbait eskeintzera.

Nere lanaren erdia esaten det, ain zuzen, orrela idatzi du nere erantzule minduak: erdizka.

Neri ere, ixilik egotea atsegin etzaiten eskeroz, or dijoakio ba-da nere erantzuna.

Zergaitik ez dituk argitaratu, ire eskutitz orretan, nik jarritako guztiak? Errexago duk nunbait, bakoitzari komeni zaion bidetik ibiltzea. Bein erantzun bat ematen asi ta, nolaz gelditu aiz erdian? Ori ez duk serioa, dana aitortu, edo ezer ez bestela.

Ik nere izena entzuna duk noski (nere lanak ere bai?), nik irea ez. Okerrago oraindik, zail izango zaidak ezagutzea, nere erantzunari buruz egindako lanean, irakurlean aurrean agertu nai izan ez duken ezkeroz ire izenik. Zergaitik? Ire arrazoi serioak izango dituk noski.

Nik, Artetxe idazle trebearen bidetik jarraitzen diat, Berak ere bere lanak irakurleantzat idazten zizkin. Naiz jakin, egindako lanak jende guztientzat ez zirela onuragarriak izango. Gu biori orrelakoxe zerbait gertatu zaiguk nunbait, ez gaituk ulertu: ik, ire arrazoiak dituk, nik nereak. Egia esateko, ire erantzunean nere lanaren erdia zigortu duk, zenbait iritzitan gaiñera, arrazoi guztiarekin, bakoitzari berea eman bearra zegok, gustatzen ez ba'zaiguk ere, eta ik ere, arrazoia duk zenbait iritzitan. Gai osoari begiratuaz ordea, ez nauk damutzen, orrela idatzi nian eta orrela utziko diat, neretzat, gai ori ta beste asko, uts askokin agertuak izatea leikena duk, ori ez duk arritzekoa noski. Zerbaitean alegintzeak dakarkian arrixkoa duk ori ain zuzen. Baiñan argi ta garbi, len esan nuena esango diat orain ere.

Ni burrukalarien bidetik niak, eta aiek dituk nere lagunak.

Igeska joatera etzioat iñori bultzako eta lagunduko. Arazoari lotuta egotea ordea, neretzako oiñarri sakonena duk, eta arazoen erantzuna burrukan arkitu nai diat eta ez igeska.

Apaiz izandako bateri, lagundu izan nioken, nere laguntza eskaxean, bera apaiz izan zan denboran, Orain ere, apaiz ez dala berdin lagunduko zioat, burrukan, ez igeska. Berriro, ulertu nai ba'duk, lengoa esaten diat. Burrukan, irekin. Igeska, iñorekin ez.

Bukatzeko au esan nai diat: Burrukan, lagun bearrean arkitzen ba'aiz, jakin arazten diat emen daukakela bat.

R. ZAPIRAIN

ZAZPI EGUN

Astelena

Aur tiki bat pasa da nere albotik. Lau urte izango ditu gutxi gora-bera, aita, ezpetxean dago, denbora luzean egon ere; aita-alabak urruti arkitzen dira bata besteengandik. Bereala, abesti ezagun bat etorri zait burura: «Aurtxo aurtxoa izu egin lo...»

Aurtxoak lotan amets egingo du, egun batean libro izango dala, aitak egindako burrukari esker. Aurtxoa aunditzen danean ordea, bere aitak ezer egin ote zun ere zalantzan jarriko du. Txarrenean, ezer ez duela egin aitortuko du. Bizitzaren korapillo luzea!

Asteartea

Sebastian Salaberria'ren «Neronek tirako nizkin» nobela asi naiz irakurtzen. bertan, gerlaren arazoak aztertzen ditu Salaberria'k.

Salaberria, bertso jartzaille bezela ezagutzen nuen, ain zuzen, Txapelketa bitan, sari bi irabaziak ditu bertso jartzaille bezela.

Bere nobela au irakurtzen asi ondoren, ezagun da bertso jartzaille bezain trebea dala idazten ere. Ona emen, nobelaren itz-aurrean zer esaten dan beragaitik:

«Oso nobela errikoia da, asieratik bukaeraiño euskal errikoitasun garbiederrenez jantzia, bai sentimentuz, eta bai izkeraz ere».

Ain zuzen, bonba h ipiñi gabetanik.

Asteazkena

Lengo egun batez, Donosti'ko mendi baten barrena ibilli giñan. Jendetza ikaragarria ikusi gendun bazterretan; atseden pixka baten billa inguraturik noski.

Berriro ere, esan bearrean arkitzen naiz ordea, tamalgarria dela gure mendietan gertatzen ari dena. Ango paper zikin, izparringiak lurrean, naranja azalak, poteak zakabanaturik. Mendiaren antz-irudi ordez, txerriak gizentzeko lokatz-lekua zirudin.

Ainbeste «slogan» ari dira sortzen bazterretan, mendian garbitasuna irauteko ere zerbait egin bearko da.

«Ez izan txerria» edo orrelako zerbait.

Osteguna

Jaia. Aizarna'tik zortzi kilometroko bidean arkitzen da Erdoizta'ko auzoa.

Gaztañaga, idazle eta euskalzale jatorrakin izan nintzan bertan.

Gaztañaga'k meza ematen du igande eta jai egunetan Erdoiztan. Bidean, ba-zan begientzako ikuspen ederrik, zugaitz bikain eta arrigarriak, mendi eder eta zabalak, eta aruntzago, mendi tontor baten gaiñean, Santa Engrazia'ko ermita.

Baserritarrak, urrun urruneko baserritik etortzen dira, beren erropa txukun eta onenakin Erdoizta'ko ermitara, Jaunari eskerrak ematera.

Fedeak, zutik irauten du oraindik Erdoizta'ko auzoan.

Ostirala

Dendetan, udara gaiñen-ta, egundoko anunzioak ari dira ipintzen: «Oportunidades, saldos, liquidación, pares sueltos...

Nik oien alboan, beste au jarriko nuke:

«EUSKERAZ; EUSKERAZ; EUSKERAZ.

Larunbata

Emakumeak, kalean ikusi ditut boltsa batzuk eskuetan zintzillik daramatela. Zerbait erosteko asmoakin sartzen dira dendetara. Bertan, dana garesti, dana gora, Jornalak berriz merke, jornalak bera.

Ori da, egunero ez ba'da, larunbatero, emakumeak erabiltzen duten gaia beren alkarrizketan. Nik galdetzen det: «Ba ote da zeruan santorik, arazo ori konpontzeko erregutu dezaiogunik?»

Igandea

Telebista'ko partidua, irratiko carrusel deportivo, eta kinielik gabe zer egin bear du gizonak igandetan? Nola bete bearko du utsune ori?

Nik gauz bat egingo nuke. Ezkondua danak, kirol «forma» ez galtzeagaitik, aurrak eta baloi bat artu, eta berarekin jolastera joango nintzake. Ezkongaiak berriz, artu beza era berean, baloi bat eta abiatu, hospital batera, an arkituko dituzte berarekin gustora jolastuko diran zenbait aurtxo. Ori ondo joaten ba'da jarrai urte guztian orrela, kinielak azturik. Ziur, ziur, aberatsagoak izango zeratela pentzatzen dut, orrela.

RAMON

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

CASCO VIEJO
TENDERIA

Boutique
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

KONTU KONTARI

Gure asteroko onetan, ale batean, lau edo bost idazlan irakurri nituan, saietzean kilikili egin eustenak. Bat, eun urte inguruko jaun agurgarri batek idatzia, ta bestea larogeiren inguruan dabillanak. Beste idazlantxoak, 9 urteko, 10, 12 ta 13 urtekoak idatziak.

Orra —esan neban—, zar ta gazte danak naste, zar ta gazte orrein bitartekoak aztu bage.

Ori dogu bear doguna, danon artean euskera aldez zintzo jarraitzea. Goitik, beratxoagotik, al dan tokitik gure izkuntzari eustea. Ez gaiazala atzerri-ujolak aurrean eroan.

Guk, zarrok, eutsiko dautsogu al dogun arte. Zuek gazteok, batez be gaztetxuok, gerorako itxaropena zaituegu, euskerea bizi daitentzat. Eta bederazti urteko idazleak dauzan izkuntza, ez da ilko.

Gaztetxuok ezagutzen dodaz, baita bere, aitatu dodazan zar biak; Labayen eta Isaka Lopez Mendizabal. Oneri, «Biotz-zabal» deituko neuskio. Ara zergaitik: 1938 garren urtea izango zan. Orduko eragozpenak gainduta, zelan edo alan Donibane'ra jo neban. Isaka izan neban neure lenengo laguntzalle. Jakiña; alderdi artan nasai ibili al izateko, ango agiriak bear. Isaka'k maiteki zuzendu nindun ango Ertzain nagusiarengana, ta onek galde: «Euskalduna al zai?. Nik, arriturik; Bai yauna —erantzun neutson—. «Aski duzu ori; fite eginen dizut bear duzun guzia». Baita egin ere. Nasai urten nintzan etxe artatik, bear nituan agiri guztiak sakelean nebazalarik. Isaka'ren itzalak egin zun mirari ori. Orregaitik, Isaka'ren oroitzapena biotzaren biotzean daroat arrezkero.

Oroitzen al zera, Isaka, orduan alkarri eman genion besarkadarekin?

Orduko besarkadearen oroitzapenez, eskarrez beterik, gaur, or igortzen dizut aipamen au dala-ta, besarkadarik samurrena, maitekorrena, ene Isaka agurgarri orri!

ABELETXE

LENGO TA OIÑGO UMIEK...

Alde galanta, ba , lendik onera. Bai nausi artien, eta baitxe ume tartien.

Geuk, ume izen gitzanien, erun gendun bizi-erie ezan izen makala. Eskolatik urten arratsaldeko lauretan, da merixendau be barik, gozie be aztute, or goiez Txaxio'n ardi aldrian atzetik, Mendibe'ko zelaire, andik goiko metala, Markiña bista, Ugagone'n sagastire, eta illun nabarrien, ardi txabola...

Etxa eratu-eran, illundute gero, gure aman arpegixe be illundute topa egite gendun.

—Nun izen zarie...?

—Ba, Txaxio'n ardi...

Ezeban izten amaitzen be.

—Ala! apaldu, errosaixue errezau, da ogera...!

Kapie eta eznie sopa galantakiñ jan, ixil, ixillik, Errosaixue, sopak baiño galantaue errezau, da, bai, zintzo ta pormal or goiez iru anaiyok ogera...

Urrengo egune, urrengoko egunek, bardin, bardin...

Domekie eltze zan, aitxe Zizilio'n mezie entzun, arratsaldeko Ume Jesus'en puntziñora juen. Etxebarri're ostera bat, amama ikustera. Etxeratu, apaldu errosaixue... eta ogera.

Iñoz, domekan baten, baten batek ziñe kontue aitxetu ezkero... laster esat'otzen gure amamak gure amari (Raimunda izenez).

—Erremunda, ez gero pentzau be e...? Umerik zinkotronkora bialtzeik, e...?

«Zinematografue» zan orduen ziñe, eta gure amamak eziñ esan ondo sekularixuen...

Basarri, basarri; mendi, mendi, ardi aldra galantaz, topekaarixe aurrez, eta Txaxio zarra, Martiñ, atzez, or gure umetako ibilli erak.

«Zinkotronkora»...? Pentzau bez, gure amamak esat'eban lez.

Oraiñ, ostera, gure umetxuok beste joko era bat darabille.

Ziñe pellikulak, telebiziño irudixok, radixo, «posterro'k» eta abar.

Gure amamak, zenbat bider esat'eban: —Ixillik, ume «drogosuok»...!

Oiñgo ume ta gaztiok bezte «droga» modu darabille.

Len, gure ume demporan, TBO orretan ikusmidak, zaldi-gizonen gora berak, irakurri ostez, Abixu'ko mendixen, Permiñ'en sagastixen, Xemeiñ gaiñen, Kunbatiz'en soluetan... ume aldra ederrak batze gitzen, eta ango gure gora-berok, gure «abenturok» bauken, bai, zer ikusi eta zer ikesi. Ori barritz «zinkotronkora» zeluka juen barik.

Gauza danak daukie euren sasoi, lege eta izetie... Ori gaitik, oiñgo umiek pe beste era bata jota dabiz.

Ez, eztakixe nun dan Mendibe, Abixu'ko mendixe, Kunbatiz'en soluok... ez eztakixe ezer be gure ama lurran konturik eta ixtorisaik...

Ori ikuxixan gara, Zerutxu, gure kultura alkarteak eratutako txapelketa jarri dabe. Geuk beintzet ez eukegun olako premiñaik, baiña oiñgo umiok, bai. Txapelketa ori da Baserrixen izenak eta bertan bizi dizenenak Amar urtetik amairu urtera bitxarteko neskamutillok parte artu dabe. Basarri etxien izenak eta barruko kristiñauen izenak onduen eta geixen batzen; asi Erdotza'ko tellerixatik, Bega basarritxik Beidera jota.

Sari au amaitxu, bere bierrok neurtu eta Urregarai'ko (Santa Eufemia'ko) zelai ederrien izengo da premixo eta omene emotie, bertara egingo dan ibilli-aldi edo «eskursiño» aundi baten. An eztie egongo Txaxio'n ardixek eta oraiñ berrogei urte izen zien umiok...

J. J. ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

GURE "ORIXE" VII

Eta zearbidez **PIO AITA KAPUTXINO ZAURIDUNA**

Euskotar idazleak, zeinbat eta zelan...

Auxe da azken atala ta labur-laburra bera. Zazpigarren ta azken ataltxo onetan, euskaldunek Pio Aitari buruz egin izan daben idazlana, begikalde batez, ikus aal izateko asmotan egiña da.

Euskaldunok bitara egin oi dogu: Euskeraz ta erderaz. Orregatik aurrean «euskotar» itza erabilli dot, berba arrek, era biak arrapatzen dituzalako: bai Euskeraz egiten dabenak, baita erderaz egiten dabenak.

Espain-erderaz gitxi idatzi izan da Pio Aitaz; eta idatzitakorik asko, beste izkuntzetatik itzulia da. Frantzesez geiago idatzi izan da; eta italieraz, oraindik askoz geiago. Italieraz errebista andi bat, be, ataraten da: *La Casa Sollievo della Sofferenza*, dauko izena.

Organo dell Opera di Padre Pio.

San Giovanni Rotondo (Foggia). Olan dauko izena ta eder-ederra da.

Errebista ori frantzesez, be, ikusi izan dot noz edo noz; baiñan ez neunke esango, italieraz koa lez, beti ataraten oi dan; ala batzuetan edo noz edonoz bakarrik.

Ta goazen barriro euskotar idazleetara. Asieran esan dodan lez, batzuek Euskeraz idatzi izan dabe eta bestetzuek erderaz.

1) *Euskeraz*

a) «Lore Usaidun-Mamitsuak», Aita Kaputxino Prantzisko Elizondarrak egindako irakurgaiak. Tolosa, 1922. Liburu polit orretan, 236-240 orrialdeetan, Prantzisko A. Elizondarrak, Pio Aitaren barriak damoskuz, bost orrialdeen ganean «Il Kapuccino Santo» izenburua ipiñiz.

Ikaste onen seigarren atalean idatzi nebanez, irarritako liburu ta paperen artean, orixe izan zan nik ikusitako lenengo liburua. Pio Aitaren barri emoten euskuna. Beraz, Euskerazko paperen bidez yakin neban lenengoz. Pio Aitaren izena, liburuetan ebillela ta entzute andikoa zala.

b) Baiona'ko «HERRIA»n, 952 zenbakian, 1968'ko urrillaren 31'koan, «SO EGILEA» idazle argiak, lan on bat agertu eban, Pio Aitaren barri azalduz ta Pio Aita goratuz. Auxe da lanaren izenburua: *Padre Pio*. Lana, laburra da; baiñan mamitsu ta polit ta gogoz irakurtzen dana.

2) *Erderaz*

a) Aspalditxo dala, «Castresana'tar Koldobika» bizkaitar idazle entzutetsuak, Pio Aitaren bizitza luzea idazti eban: *Vida del P. Pio de Pietrelcina*. Editorial «Circun», Zaragoza. Buru (kapitulu) luze batzuk, oso ederrak ta yakingarriak daukoz; ta ezagun da, Pio Aitaren bizitza ondo ta sakon ikasi ta barrendu ebala.

b) *Herbert Thurston, S. J.*, «Los fenómenos físicos del misticismo», versión castellana de Gabriel Manterola, Pbro. Ediciones «Dinor». San Sebastián, 1953. Ingleseratik erderara itzuli eban. Gabriel Manterola abadea, euskal idazleen artean ain ezaguna dogun «GAMA» bera da. Egillea, barriz, Ipar-Ameriketako yosulaguna da ta olango gaietan yakintsua.

Pio Aita yaio ta bizi zan leku ta ingurumarietan ibilli ta ibillia aren ta aren sendi ta aurrekoen barriak yakiteko, ez da ipuinetan ta mirarizko kontuetan erraz siñistu oi daben areitakoa dana, zeatz ta estu, arrazoiaren galbaitik igaroten dauena baiño. Alan da guztiz. Pio Aitari eskeiñi eutsozan orrialdetan, leku on-onean uzten dau Zauridun Kaputxinoa.

Ona esaterako batzuk, orrialde ez-bardiñetatik artuak: «...el devoto Capuchino, cuyos estigmas provocaron grandes discusiones en Italia y otras partes». «En este caso parece que no hay duda de que el Padre Pio es un hombre de notable santidad».

Eta yarraian, santua dala irakurleak etsiarazteko, arrazoiak dakarz; baiñan ez mirarizkoak, arpegiko begiz ikus daitezkenak baiño; eta nik, geiegi ez luzatzeagatik, onera ekarri ezin ditudanak. «Como he dicho no puede haber duda de que el Padre Pio lleva estigmas y los ha llevado bastantes años en manos, pies y costado, marcas que corresponden a la Sagrada Pasión de Nuestro Señor».

Zauriok, 50 urtez eroan zituzan; eta il be, orreikaz il zan santu-santuki. Baiñan ez irudiela, kirioen (nerbioen) eririk ebanik, be, idatzi eban. «El Padre Pio siempre está excepcionalmente calmoso y compuesto. El historial familiar no es malo». Ta oneik danok, Pio Aita bera bizi zala, idatzi ebazan; ta bere azterketetan ez eban gaitzestekorik ezer be aurkitu.

Baita geroago, «Un Estigmatizado de nuestros días», Buriuñurdun Aita Pio Pietrelcina'rena eta Carlos de Espinal'ek Lekarotz'en gazteleratua. Itz aurrea, Dr. F. Soto Yarritu'k jarria, ta Bilbo'n, Desclée de Brouwer'ek 1957'an argitaldua.

Beraz euskotar idazleetan, ORIXE'z beste, danak Pio Aitaren aldeko sutsuak izan dira. ORIXE bakarrik aurka... Zer esango, onen aurrean...? ORIXE'gaz asi neban Pio Aitari buruzko ikaste labur au. Eta orain ORIXE'gaz amaitu, be, gura neunke. Amaitzeko, zer esango ba...?

ORIXE'ri nik UNAMUNO'ren antza artuten dautsodala batzuetan; ta ez txikia gero. UNAMUNO'k «unamunokeriak» egin ta esaten zituzala, sarritan idatzi oi da. Emen ORIXE'k, be, «unamonekeri» bat egin ta idatzi dauela iruditu yat neuri. «Unamunokeria» dagoen lekuan, irakurri «orixekeria». Eta onegaz amaitu dot.

Bizitzako azi-orraziek lagunduten ba'dauste, neuk be, Pio Aita Zauridunaz zer edo zer luze-zabalago, sakonago ta osoago idazteko asmoa ba-daukot.

Eta oraingoz agur, irakurle, Jainkoaren baitan.

YURRE'TAR YULEN A. K.



KIROLAK

Nekatu eziñak aurrera

Ia izkuntza geienetan aipatua izan da Eddy'ren izena, azken aldian izan daben garaipen aundiagaitik. Orra ba, euskeraz be aipatu daigun gizandi bularkementsu au.



«Giro» ori irabazi dau, ta ez da erreza izaten Italia'n. Lasterketa au 1909'an asia dogu, eta bere irabazleak, luzeroan beintzat, italiarrak izan ziran beti. 1950'gnean izan zan erbestetar baten lenengo garaipena: Hugo Koblet suizarrarena. Arrezkero izan dira beste batzuk be irabazle: 1954'gnean, au be suizarra Carlo Clerici, ala ta be italiar izen usaintsuduna; 1956 ta 1959'gnean luxenburgoar Charly Gaul; 1960 ta 1964'gnean prantzitar Jacques Anquetil aundia; ta 1968 ta 1970'gnean iñork arrapatu ezin daben erbia dan beljikar Merckx au; 1971'gnean suekiatar Gosta Peterson, eta azkenez, aurten, Mercks irugarrenez, ta esanak esan, ankapez.

Lasterketa onetan lenengo izate ori iñork baiño geiagotan lortu dabenak, oneik izan dira: Binda'k eta Coppi'k, bost bidar bakoitzak.

Aurtengo onetan, abiada motza izan dabe geienetan, ala ta be, neurketa neketsua izan da, eta iru euskotar txirrindularik euren indarrak erakutsi be al izan dabez, or dozuz amar lenengoen artean: Galdos irugarren, Lasa bederatzigarren eta Lazkano amargarren. Zorionak danori!

PERTIKATSOLA

EGAZTARI PANPIÑA

Beroaz, Uda garaian azaltzen dira bai, lo, ezkutuan erdi-illik edo, Neguan ikusten ez diran berein izaki. Batez be, mozorroak. Nun sartzen, nun estaltzen, nora iges egiten ete dabe edo, zelan bizirik ateratzen ta agertzen dira beroakaz, egun batetik bestera? Arriagarria bai, bizitzaren iraupena, bizitzako katea!

Baserrietatik at, uriko bizitzan, kale basterretan bizi garaenok izadiaren aldakuntzakaz eta, pirtxilleritzat daukaguzan txikerkeri batzuekaz ez gara ia konturatzen. Baiña alan be, uda aldiko elai etxetiar maite; enara ariñen zirriztada alai;goiz-arratseroko eguzki bizigarri eta txori-txintadakaz... Euri, edur, izotzondoko egun argi, ederrak ikusiz; mendietarako, aizea artzeko gogoa datorkigu ta, al dogunetan, uriko landola-ke ta likiskeriak itziz or, abiatzen, egurasten gara osasun billa; eguzki billa, aize billa...

Ta biotz-begiakaz bazterrak gozartu, arakatuz... uritik urten bezin laster, begien aurrean nun-nai dakusgun ezetasun ederra... Euskalerri zoragarria!

Beroa bizi-suspergarri izanik, izadia bere emaitza eta garatasun, izatearen eragiñez agurka daurkigu mendi, zelai, ibai, latsondo ta abar, ta, batez be, zorioneko abaro eder, itzalpe atsegiñetan. Eta, beste izaki askoren artean ona emen begiperatu dogun zomorro egaztari pinpirin polit bat... ta, arantzago beste bat, ta, aunitz... Bai politak! Lora bitxien antzeratsu or dabiltza atzez-aurrerako, zearkazko egada goiberatsu, egakera arin-baldar, zirriborrotsuetan. Izaki zuri, baltz, urdin-zuri, urdin-gorri, ori-marroi, nabar; berein margodun egaztari panpin, dotoriak... Zelan da bere izena?

Gazteleraz mariposa izenez ezagutzen dan izaki nimiño, bero-zale onek, euskeraz ez dakit zenbat izen edo izentzakoz deitua dan... Begiratu egizue iztegietan ta arriturik gelditu ko zarie, erriaren asmamen, ainbesteko ugaritasunez.

Batzuk aitatzeko: altxalili, atxabili, lilirita, atzamini, atzalili, sorginbitxi, atxita-mutxita, txiribiri, pinpirin, mitxeleta, txipilipeta, tximirrita, mitxirrika, pinpilipauxa, txaketa, kalaputxi, inguma, elguma ta abar... Geien bat, lili edo lora irudizko izaki sorgin baten izakera adierazten dauskue izen polit auek... Zelan sortu ete ziran izenok?

Bearbada ume ikuskarien itaun ta iakin-miñari erantzuteko sortuak izango ziran antziñako ama ta, amamatxuen irudimen ta ezpan maitagarrietan. Ez el dira benetan iolasgarri?

Ba'dira beste izen bakan batzuk: axandalo, eskabi, aiñari, sorgindara...

G. Bahr'ek, bere uste ta irudiz diñosku, elguma dala egokien edo egi-antz, zuztarrik aundiena billatzen dautson itza. Elguma eulitik ei dator, eltxua eulitxutik datorren eran, ta uste ori argitzeko, ez dala arritzekoa dirausku, egaztari panpin orren izena eulitik sortua izatea. Alan gertatzen ei da beste atzerritar izkuntza batzuetan. Adibidez: Ingelesak «Butterfly» (Koipe culia) ta, doistarrak, «Buttervogel», au da (Koipe txoria). Lapurditarrak «Uli farfalla» (farfalla itz ori, mitxeleta italieraz) Argibide auek, ta azaltzen ez dodazan beste batzuk damoskuz egilleak, bere usteak baieztu ta sendatzeko.

Nik be, elguma itza ontzat artzen dot baiña, gorago aitatutakoak be, oso politak, aintzagarriak ta egokiak dira noiz-nai ibilteko.

Gure artean makiña bat siniskeri sortu izan ziran egaztari txinbeleta onen bidez.

Entzun batzuk: «Baltza baldin bada, barri txarra dakar; zuria baldin bada, barri ona». «Argi inguruan ba'dabil, aideren bat iltzen da» «Argi ondoan dabillenean barriren bat dakar; Kartea edo euria», «Zuria zerukoa da, baltza inpernukoa, gorria purgatoriokoa», «Mitxirrika zuria Iainkoaren mandataria», ta, abar.

Dakusgunez mozorro txiki au, Iainkoaren mandatari pinpirin au, ez dago zalantzik gure errian aintzakotzat artua izan ez danik esateko. Ostantzian, nundik ainbeste izen eta, siniskeri? Beraz, ikastun iakintsuak dirauskuenez arrigarrizko izaki baten aurrean arkitzen gara. Bai ei-dira, mitxeleta iragailleak eundaka kilometroko bideak egiten dabezanak lur ta itxaso gaiñez. Aizea aurretik, kontra izanarren aldendu barik aurrera egiten dabenak.

Ain ezer-eza, ain utsa dirudin zomorro onek ba'dau bai bere zentzu ta indarra.

Zelan giatzen da, zelan baliatzen da, ibillaldi luzean ta, aizearen aurka, bere elburua dan lurraldera ain zuzen eltzeko?

Ba'dauka gizonak, oraindik, zer ta, nun ikasi.

MUNIATEGI'TAR SABIN

NOR INDARTSU?

Beste errialdeetan izatekoak gertatzen. Euskaldunoi buruz urrutikoek orixe bera esango.

Au egi: 1971'garren urteko Ilbetlzaren 24'garrenean Itali'n, Gaeta deritzan irian gizona il zuten: illa izan zanak, eriotza baiño len aldamenean amalau urteko illoba zuan. Nexka. Eta iltzailleak nexka ori ostutzekoz berekin eraman.

Okergilleak ogen bi zituan berekin. Gaiztakeri lotsagarri bi, ain zuzen. Ari epai zorrotza gaiñera zetorkion nolanai ere.

Ezik, gaizto alenak alakoxe zerbait zerakusan: alegia, oiezko ibilkera tximen eta iardun txoroa. Eta, artarako deitu izanek arengan «iaiotzetik gaiztoa zanekoa» ikusi zuten. Eta odolean alakoxe tantoak zituala: tanto oriek gizonari okerrera bultza egiten, noski.

Ondoren, ordea, gizonaren odola ongi aztertu zutelarik, «Y» esaten zaien tanto orietakorik gaizkilleari ez zioten aurkitu. Orrela okerra egin zuan orrek, iñondik ezin ustiatu dezake «Y» tantoak izanez zukean biguintasuna epaitzerakoan.

Ikasiek eta iakintsuek auxe diote: geron osoan gaudenok «Y» odol-tantoak eta «X» odol-tantoak neurri egokian daramazkigula. Ez batetik geiei, ez bestetik gutxiegi. Alderantzira: «Y» odol-tantoak gaiñezka dituana, sortzez gaizkira txito makurtua dala. Olakoetan, auxitegian okergillea sortzez elbarria eta gaizkilletzat artu bear, eta ez bere osoan dagoana bezela. Bere osoan diraunak oker ba'dagi, delako okergillea zuzenean biotz-bel z deitu bear eta auzitegian ogenlaritzat epaitu bear.

Ikasien eta iakintsuen «Y» odol-tantoazko esanak siñistagarri ote? Ala, oraindik argitasun geiago billa bear ote-degu? «Y» odol-tantoz kuin-kuin deguna bakarrik gaizkille? Ala beste norbaitzuk ere bai?

Beintzat, oraingo ontan aiputan degun italiar iltzailleak «Y» odol-tantorik ez berekin. Ala ere arek gizona sakaildu zuan. Ibilkeran eta geroagoko iardunetan nolabaiteko agertu zala? Agian, bere barrenak ez agintzen alako ilketarik egitea. Bitartean, egunkarietan berri tximenak eman-bearrez dabiltzanek irakurlea aztora arte ez gelditzen.

Ageri danez, banaka batzuk sortzez gaizto diranik ezin nolanai esan. Onako au siñistagarriago: *guztiok* sortzen iaiotzean okerrera makurtuak.

Alperrik al gera siñistun? Ukuzpen-bataiao ba-dala guk siñisten. Kristo Askatzaillearen eriotz-eroslea guk aitortzen. Eskatu ezkero goi-eskerra iristerreza deguna guk iakin: *Eska ezazute eta emango zaizue, zabiltzate billa eta idoroko duzute: yo ezazute ta irikiko dizuete.* (Mat. 7, 7), Siñismen au ez dutenek guk ez iakin zein zidortxo ezkutuz laguntza izaten duten: oriek ere ez iarduten itsuan eta bultza-bultzaren eragiñez, ez odolaren beroarren bakarrik.

«Y» odol-tantoen eragiñak bein ere ez dit zorabiorik sortu izan. Aitzitik onako beste au oso iakiña degu: bein baiño geiagotan aukera egin bear dedala eta delako aukera nere esku izan dedala; Gogoa azke degu: onako au aukera nai degunean azke gu. Arako ua aukera nai degunean orobat azke gu. Agian gogoari zerbaitek eragingo dio: baiñan, datorren tokitik datorrela *eragiñari* iarraitzeari utzi dezaiokegu. Azke geran zantzu, orixe izan. *Eragiñari* bai esatea, eta ez esatea gureak ditugu.

Baita tarteka, uste ez degun alderditik *eragin* arrotza sortu liteke. Eta, orduan onela esan oi degu: «Zer ari nintzan neronek garbi ez nekian». Bai ta beste era ontara ere itz-egin oi degu: «Nere buruaren iabe ere ez nintzan». Iñoizka zerbaiten eziña degularik, edo sendiari eta gizarteari edo aldameneko giroari erru osoa egotziko doigu. Osasun makalari, berriz, ez gutxitan. Beti ere geron buruak nolarebait zuritu.

Ez gutxitan gero, geron buruak oso-osoan ezin zuritu ditugularik, onelatsu esaten guk: «Ezin uka nezake, alako artan, egun artan, une artan *aukeramen osoa izan nuenik, beste iñork ez ninduan beartu egin nuena egitera eta utzi nuena bazterrean uztera*».

Iakintzalariek esakun polit asko dituzte. Esan oietakoa auxe degu: Ibilli-igidura ez omen diteke itzez adirazi: bitartean orrela mintzo dana aurrera ioaten. Aukeramen-askatasuna era ortakoa degu: osalarien aitortzaz eta ikasien itzez «Y» odol-tantoen *eragiñera* gabiltzala azaltzea edo azaldu-nai izatea urri gertatzen: ain ezer gutxirako gerala, alegia. Bitartean bakoitzak bere barruan ederki iakin zergatik era ontara ari izan dan, eta zergatik era artara aritu izan dan.

«Y» odol-tantoen arazoa egiz siñistarazi nai diguten bezela dala, nork etsiko? Nori siñistarazi diralako *eragin* bero oriek okerrera indarrean eraman gaitzazkenik? Olako siñiskerietan dabiltzanentzat gizona zer izan diteke? Azi eta bizi dan izpitxoa ote? Egiz, egun auetako askorentzat gizona utsa aiña ere ez da: beti zuloan giltzapeean euki, ala izenik ere ez duan askatasun beltzean zaindu, zer ardura zaio? Geron oroitzan ez al degu entzun izan, okerrerako girin dakarrena amaren sabeletik ilki orduko ezabatzea obe litzakela? Eta «Y» odol-tantoak dituana zergatik ez garbitu, olako iritzietan dabiltzanen ustez?

Norbaiten belarrientzat gogorregi litekela ere, ez al da obe gizona ogenlari izan, eta ez «Y» odol-tantoz kutsatua? Ogenaren atzaparretatik ezin irtenik ez da izaten: nai izan bear. Alegiñetan ibilli. Erabaki ziñekoa izan. Gaitzaren zulo eta malkarretik irteteko burruka eta aztarriketan poza izaten da: bakoitzak zerbaitetarako ba-dala ikasten du. Bere nortasuna aitortzeko aukera eta mugona izaten.

Ogenlaria ez da izenik gabeko norbait, eta ezinbestean okerrerako sortutakoa: ogenlaria *ongiak* beretzat nai du; *gaitzak* oro bat gaizkiña beretzat nai luke. Eta delako burruka ez da urrutiko zelaitetan izaten, baizik bakoitzaren barne-barnean, mami-mamian, gogoan, biotzean. Ogenlaria zintzotasunera itzultzen danean, donokian ospekizunak izaten: *Neu aitor natzaizue: orrela zeruan ere garbai dan ogenlari batengatik poz aundiagoa izango da, garbai izaterik ez duten larogeitaemeretzi zindogatik baiño.* (Luk. 15, 7) Zer diodan dakiñarentzat, etsaiak zirikatua izatea zerbait ospetsuago da, bere barneko odol-tanto nabar utsak zirimolan erraustua izatea baiño. Olakoxeak gera-ta okerra zapuztu izan degunaren arropuzkeritxoa ere geron onerako izan liteke.

Guztia odolaren *eragiñari* utzi eta geron gogo eta naiari ezertarako eskurik ez eman, gizonarentzat oso motza da. Geron naiari ez damaiogu ezer: zurgiñak agian bere eskuan duan aizkorari esker geiago damaio. Bitartean, aizkorak legiken okerra zurgiñak nozituko!...

Auxe esan liteke, noski: «Y» odol-tantoak errudun egiten ditugularik, geron buruak zuritu nai ditugu. Olako zuriketak giza-naimena batetxo ez du indartzen.

ETXEBERRIA'TAR P. S. I.

SEME-ALABEN ZIGORRA

NEURTUA IZAN BEAR DU

Seme-alabak neurritik at, zigortzen dituzten gurasoak, zoritxarrez oraindik ba-dira. Gizonon zitalkeriak neurririk, ez du. Geienak maite bear ditugunak izan arren, maiz gogor zigortzen ditugu. Zergaitik orrenbesteko gogorkeria norbere semeen aurka? Ta zeatz 8 urtetik beerako aurren aurka? Basakeri auek, salatzeko txikitxoak diralako?

Gaur semeak aitzin eta aurrean ikustea, batera ta bestera ibiltzeko oztopoa bait'da. Aldikada ontan, emakumeak gizonen antzo ustiatu ta gozatu nairik (ez du onekin esan nai, gizonen aiña eskubide ez dutenik), maiz aurra utzi ta egotzia gelditzen da.

Zigorra, orregatik, alderatu bear al du? Zigorra batzuetan nai ta naizkoa dalarik, zuzentasunaren argiak eragindako zigorra bear du izan. Ta zigortu bear danean, zauririk edo gerorako kalterik izango ez duan tokian. Aurrak, gurasoen laguntza galdu duela ikustea, naikoa du, geiago okerrik ez egiteko.

OSARTZU

ESPETXERATURIK, BAI?

Kaiserkeria edo agintekeria bezin zaarra da azkatsaun naia. Azkatasun-nai ori, sarri, azalera irtetzen da, begiak ikusi eta biotzak siñistu dezaten. Sarri, ere, gizon edo erri izatearen barru-ezkutuan ixilik gordea egon oi da, adierazten ez dan minzurri baten antzera.

Kaiserkeria dagoenetan, neurri gabeko zigor latz batek illik bezela iraun arazten du, iñoiz iltzen ez ba'da ere. Auxen da URSS'en ere dagoan pakea, ainbeste aitatzen diguten pakea, bai, illobietako pakea.

Askotan azkatasun-eza ori uste gutxiena gendun berri exkaxena izan oi da gure adierazgarri. Ez da gauz aundia, baiñan zeredozer esan nai digu onek. Monseñor Karel Skkoupy'ren illetak ziran Brno'n (Txekoslobakia). Illetak bukaturik Franz Konik kardenala zerraldoa bedeinkatu nai izandu zuan. Ez zioten utzi Erri agintariak galerazi zioten. Alegia, gizon soil bat bezela zegoala an, eta ezin zezakeala egin iñolako erlijioso ekintzarik.

Praga'n (Txekoslobakia'n ere) dagoan «The Guardian»eko izparlari batek dionez iñork ezin omen dezake idaz-makiñarik erosi bere izena eman gaberik. Izen au, ontarako berezituta dagoan polizi talde batera (STB) omen dijoa. Ixilkako orri baten kopiak ateratzeak bakarrik emezortzi illabeteko espetxea omen dakar.

Erria, etsita, buru-makur zegoan zigorra zala-ta. Nor Kijote altxatzeko? Ala ere talde txiki batzuek ezkutuko orriak ateratzen asi ziran. Zapar aundia izan zan «Txekoeslobakia Sozialista Mugimendua»k 1970'garrenean emandakoa, orriz eta mugiz. Boemia'n ere «Egintzak, Iritziak eta Azterketak» deritzan ixilkaria irtetzen asi zan. Orobat Moravia'n «Zenzuraren Oial Atzetik» izeneko ezkutuorria. Auek, eskerrean eskerrenekoak izanik ere, gobernatzailleentzat, baiña, ertz-ertzeneko eskubienak izan. Aitatzen degun lenengo ixilkari orrek aldiro ogeitamabost milla ale zabaltzen omen ditu.

Beraz, URRS barruan ere burruka ba-dago. Eta burruka guztietan oi danez, batzuek irabazle, besteak galtzaille. Eta galtzailleen azkena espetxea da. Baiñan, bai al-dago espetxeraturik? Agintarien ofizialtasunez, ez. Besterik izan ordea.

Mosku'n bizi diran periodistak, erbestekoek, gutun bat jaso zuten igazko urtearen azkenaldean. Mordobia'ko «3-1 kanpoan» zeuden bederatzi presoek izenpatua zegoan, eta Cruz Roja Internacional'eraiño eraman zezatela idazki ura, arren eskatzen zuten, ea erakunde onek zeredozer egiten zuan beroien alde.

Gutun orretan adierazten danez, Lotazilla'ren 10'an ogeitamar presoek goseopor bat egin zuten. Egun orretan «Gizakien Eskubide Eguna» izan, eta berak ere parte artu nai. Zigorra, baiñan, latzki etorri zitzaien: Espetxeratu batzuek zigor gela illunetan sar zituzten, beste batzuei, urtean beingoz sendia ikusteko eskubidea ken; bestei, zeatz galerazi ekonomatoan ezer erosterik.

Gutun orrek ere dio, gaixorik daudenak lanera beartzen dituztela. Jatena arrunt txar eta exkaza dala. Eta «3-1 kanpo»ko komandanteak zenbat gaixo egon ditezken erabakia daukala, eta gaiñontzekoak osasuntsu... sendagillearekin kontatu gabe.

Auek dituzute, preso oiek diotenez, dioten «reedukazioaren» oiñarriak: gosea urteetan eta urteetan. Gutun ori izenpetzen dutenen artean, lituaniar mariñela dan Simas Kudirka dago. Bere pekatua, URSS'etik iges egin nai izatea.

Gabon ille orretan idazki bi egin zituzten. Bata, Sovietar Parlamento'ari, bestea Nazio Alkartu barruan dagoan «Gizakiaren Eskubideen Batzordeari». Zerbait lortu ba'dute, gaur ez dakigu, gure gogoa orrela izan arren, espetxeratu guztiekin gaudelako. Baiñan beldur gera presorik ez daukaten zimarekin ez ote duten jarraituko.

UXOLA

ARA BERRIZ TXINA

Aztuta izan ba'degu ere, ona berriz Txina gure artera, ta zerbait jakitzea onerako izan lezakela-ta, ona lantxo au:

Txina'k, lendabiziko batualdia edo inperioa, Txou sendiakin, Kristo baiño 770 urte leenago, gutxienez, ezagutu zuan. Gero, Kristo aurretiko 221'gn urtean asita, feudalismo jautxokeri arazo latzarekin aurrez-aurrez, laterri aundi orren alkartasuna berriztatu naiean alegindurik ibilli zan, eta abetako sendi batek Txin izenekoak 221'gnean Txou' tarrak azpiratu ta jabetu ziran.

Kristo baiño 119 urte leenago, kanpoko saleroste zabalpenak eskatzen zuan diruaren gora-beerak, oso argitsu ta onurakorrak izan ziran.

Aurretiko 215'gn urtean asita, Txin' tarrok, Mongolia'tik unak egiten zituzten erasoei eusteko, guda-orma arrigarri ta bikain ori egin zuten, Sei milla kilometro arriz inguraturik, gutxi gora-beera, sei edo zortzi metro gora ta sei metro lodian. Mendigaillurretan zear bukatu eziñeko bidea jarraituz, landu leitezken lurretatik iparraldeko larrezabal estepak mugatzeraiño. Lan eta babes oiek denak egin arren, gerora, 1215'gnean mongolitarrak, Txina'n sartu, ta ango nagusi egin ziran.

Lur aiek etsaietatik aldezteko, Txin sendi aldiko hisiung'tarrak egiña da. Guda-orma luze ori 300 milla gizonegaz, amar urte buruan eratutako lana da.

Ondoren, aurretiko 300'gn urtean, ormea bukatuta bereala, Han sendikoak jabetu ziran, ta Kristo'ren garairarte agindu. Unerik aberatsena ta bizi-modurik itxurazkoena, garai ortan izan zuten, Europa'rekin ere artuemanak izateraiño.

Arrezkero, Mang, Han'tarrak berriz, zatiketa aldiak, Txin, Tang'tarren aldirarte (618) ez zan pake aundirik ezagutu. Barbaroak ere araiño eldu ziran, baiña, azken sendi onekin berriz aberastasunak lortu al izan zituzten. Gero Sung sendikoak jaso ziran eta Txina berriz ere goitik beera, ta len esan degunez, mongolatarrak sartu ta 1215 Pekin'en jabe egin ziran eta irurogei urte baiño lenago Txina osoa ta gaurko ipar Vietnam ere eskuratu.

Eun urte buru, ego aldeko txinarrak beren buruen jabe egin ziran berriz, eta Txu-Yuang-Txang, basarritarren semeak, gudarozte aundi bat eratu zun eta ipar aldeko erdia ere azkatu, onek sortu zun Ming sendiko erregetza. Erdiaro bukaeran, sendi onen lenengo aroan, erria suspertu ta pizkundean aurkitzen zan.

1500'gnean, Ming'tarren azken aldian, aldaketa ta okertze etengabeak zirala-ta, eraman bearren paltarik etzuten izan. Mantxutarren erasoa XIV gizaldian asi ta XVI' erako Txina osoaren jabe egin ziran, ta Txing sendia jarri zan agintzan, gure gizaldi onerarte. Europa'rekin artu emonak geitu ta aberastasunak berriz gora egin zuten lenengo aldi ontan. 1842'gn urtean, ingelesekin guda galdurik, eurak eurentzat, iraultzaren bitartez, aldaketa zeatza lortu zuten. 1911'gnean nazionalistak eta komunistak, Txang-kai-txek buruzagi zutela, mendi-oiartzun guztiak esnatu ta inguruko gizadien biotzak pizkorturik, errepublika ekari zuten.

Azkenengo gudatean, japondarrak indarrez sartu ziralarik, komunistek eta nazionalistek, alkarren arteko zaiñ-tirak azturik, oiek burrakatzeko alkartu ziran berriz. Baiña, 1949'gnean, Mao-tse-tung, Pekin'en komunismoa tinkortuaz, jaun eta jabe egin zan, eta Txang-kai-txek'ek, Formosa'n nazionalismo osaturik alkarren etsai biurtu. Mao'ren nortasunari egiten zaion gurtzea, itxumenez beterik aurkitzen da; Txina'ko erti-lan ta jakintza guztiaren bixitasuna, arrapakatu ta orobiltzen du. Txinatarrentzat jainko bat dala dirudi. Bere pentsakerak milloika idazti-gorri oietan zabaldurik daude, ta bere aurpegiaren irudia nunaitan ikusten da.

Bestalde, Txina'ko arteak, antxinakoa dalako ta ango ertilarien berezitasunagatik, ez du beste iñungoren antzik. Antxiñako edertasun aunitzen jabe da. Zer esanik ez, Txina'k erti-lanezko oroigai ta kondairazko berebizikoak aunitz dituzela. Jakintzaren iraultza orrek, erlijio adierazgarri guziak kendu ba'ditu ere —naita Kuan-Ta jainkoan siñistu— denak errespetatu dituzte: Izugarrizko guda-orma ori, Ming'tarren illobi dotore ta arrigarrizkoak. Auek ikustera dijoazenei, iragarri aundiak adierazten die, esanaz: «Illobi oroigai auek egiten ondatu zan diruarekin, 100 milla nekazariri sei urtean jaten eman zekien». Ta or, iñoren erruak nabarmen; eak orain atomika armatzaz eta gizonak eta erriak zapaltzeko xautu ta alperrik galtzen duten dirutzaz, zer?

Egia esan, Ming jauntxo auen illobiak egiten diru aunitz ondatuko zan. Illobi zoragarriak izan ere, ta Ejipto'ko Faraon'tarrak jasotako piramideak gogora-erazitzen dituzte; testigu gixan or aurkitzen dira, Txina'n Ming errege saillak 1368'tik 1644 urterarte agintatu zula.

Txina'k 800 milloi biztanle izango ditu, gutxi gora-beera. Uri aundi ta bikaiñak bat baiño geiago: Shangai, Nankin, Hankow etabar. Baiñan danetan nagusiena, Shangai uria izango da, 12 milloi biztanlekin, ba-liteke ziur-aski, uririk aundiena izatea ludian.

Batez ere, gaur-egun, Shangai uria, gaua eltzean utsik aurkitzen delarik, ibai ertzetan, Mao'ren pentsakera eskuz idatziak aurkitzen dira. Ta jakiña idatzi auek irakurtzen, bat edo beste ikusten dirala, zer esanik ez.

Txinatarrentzat beti, sendia leenengo erakundea da. Ala izanik, beragatik bizia aixa emengo luteke. Orregatik Mao'k sendierakundea deuseztu ta galdu nai du.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

ITXAS ARAZOAK

Zer eratan saldu bear da arraiña?

Euskal Erri'ko arrantzari buruz egin daben azterketan, beste arazo batzuen artean, arraiña subastan saltzeaz jarduten dau. Arraiña era onetan saldutearen aurka dago ta milla alderdi txar ikusten dautsaz.

Arraiña ei da ola saltzera beartuta dagoan janari bakarra. Munduko lurralderik geinetan nai daben eran arraiña saltzeko askatasuna ei dauke arraintzaleak eta askotan aurretiaz erosleakaz erabagitako saneurri jakiñean (fijoan) saltzen ei dabe. Subastan arraiña saltzeak saneurriari, batez be antxobaren saneurriari, gorabera andiak ekarten ei dautsaz. Subastan arraiña saltzean erosleak soillik eragin ei leike saneurriari, arraintzaleak ezer be ez. Erosleak alkar artu ei leikee arraiñari saneurria ipinteko. Orain arraiña otzetan gordeteko erak izanik asko dagoanean gorde ei leike, gitxiago dagoanean atarateko; beraz aurrerapide orreik kaietan ipiñita, arraiña itxasotik ekarrita bereala saldu bearrik ez leukee izango ta ori saneurri jakin bat ipinteko alderdi ona da. Saneurri jakiña arraiñari ipiñita arrain lantegi jaubeak euren lana obeto burauratuko ei leukee. Ta abar ta abar esaten ditu.

Ez dago ezpairik arraintza arazoa aurrerapide andienetik eroan bear dala; baiña lengo gauza guztiak oker dagoazala onek ez dau esan nai ta ezta ankaz gora jaurti bear dirala. Arraiñaren saneurria subastaz barik aurretiaz ipiñi al ba'da ipiñiko da denboriagaz, ipiñiko jako saneurri jakiña.

Baiña nire ustez, euskaldun arraintza arazoan lenengo konpondu bearrekoa ez da au. Arraintzaleeri geien ardurea dautsana ez da era batera edo bestera arraiña saltzea, saneurri andian saltzea baiño. Ta arraiña (antxoba ta atuna) merke saltzen danik ezin esan daiteke. Guda aurretik onera geien igo diran janarien artean egongo da arraiña. Buruz esango dodazan zenbaki oneik zuzen-zuzen ez ba'dagoz be oker andirik ez dabe izango. Nire ustez antxobak kiloko errial bi inguru balioko ebezan ta atun egaluzeak zortzi txakur inguru. Gaiñera, antxoba asko saldu ez-da, itxasora jaurtiten zana ez dogu aztu bear.

Orain antxoba, batez beste, kiloko ogetamabost laurlekora eldu da ta atuna ia berrogetamarrera. Bizimoduaren arauz beste lurraldeetan be antxoba ta atuna geiago ez dira ordainduko.

Antxobaren saneurriak gorabera andiak izaten dituala? Bai, ala da, baiña arrain ori bere tasunez edo kalidadez guzti desbardiña izaten dalako. Antxoba andi ta txikia ez dira balio bardiñekoak eta ezta be preskua ta ondatua. Antxoba txikia ez da gauza gatzitu lanerako. Eta anditxuagoa dana be ez asko.

Gatzituta latetan sartzeko antxoba preskua izan bear da ta asko etorten ba'da ortarako bear dan jende langillerik ez dalako izaten, egunetan da egunetan egoten da lenengoan emondako gatzagaz ta kalidadez asko galtzen dau ta gero fileterako izateko modura ipinten da. Baiña fileterako izango dan arraiña ezin gasresti ordaindu, irabazi gitxiko lana dalako.

Beste aldetik, jarraian, antxoba asko etorten ba'da, preskuan jaten daben erria aspertu egiten da. Ez dira «asentadoreak» antxobari saneurria ipinten dautsenak, jaten daben erria baiño.

Arrain erosleak arraiña merkeago erosi al izateko alkar artuten dabenik sekula ez dogu entzun ta susmau be ez itxas errietan bizi garanok. Eurak orain arte lez antxobia subastan erostea naiago izango dabela uste dogu, arrain oneri saneurri jakin bat ipintea buruu eziñiko lana dirudi-ta. Antxoba andi ta txikia, erri ta erbesteko itxasontziak arraiñagaz, erosleak be bi eratakoak, preskuan saldu bear dabenak eta geien bat Italia'n saltzeko gatzituta gertuten daben lantegi jabeak ta beste kontu asko batera ekarten zaillak.

Gipuzkoa'ko arraintzaleak iñoiz orretariko lantegia ipiñi izan dabe ta asko galduta pikotara joan izan da.

Denboriak erakutsiko dau edo jakingo da antxobia saltzeko erarik onena zein dan, arraiñari bere balio zuzena emoteko subastan ala saneurri jakin baten saltzea obe dan. Baiña ezpai barik erarik errezena, naste ta zer esan gitxien sortuko dabena edo leukena oraingoa da.

KAMIÑAZPI

Italia'n Italierak

Italia'ra joan, ta bazterrak ongi ikusi nai ba'dituzu, kontuz izan Maffia dalako orrekin. Maffia zer dan ongi esateko, berak dauzkan indarrak nolakoak diran jakin bear. Dakigunez, alkartasun indartsu eta garrantzi aundikoa danez, bertaratzean lenengo pentsatu bear dana orixe da: maffiatarrak zaintzen izaten dirala ta aintzakotzat artu bear dirala bere legeak. Legeak diñot, oentzat orrela diralako.

Erroma'ra eldu baiñon len, baldin egazkiñez, bultzian edo autokar oietan joaten ba'zera, «gia»k lenengo esango dizuna da, alegia, kontuz ibiltzeko. Erroma'ra egunero, eundaka autokar joaten dira. Gogoratzen naiz zer esan zigun gure giak, zion: «gu eltzen geran bezin laister, ni bezelakoen lenengo egitekoa, organizazio orreri adieraztea da. Adierazten ez ba'dezu, alako autokar aien jabeari gertatu zitzaiotena gertatuko zaizu: utzi bazter batean edo edozein lekutan autokarra, ta ikusiko dezu, urrengo egunean, gurpillak eta beste baliozko gauzak nola ostuak izan diran! Adierazten ba'diezu, utzi bildurrik gabe berebilla edozein lekutan, ez diote ezer ostuko, ta gaiñera, ortako daudenak, ongi zaituko due». Zergaitik ori?

Italiarrak, lege bat ba'litz bezela, ontzat artzen dute ta maite dute Maffia. Ordaindu bearrean izango zera oiek jartzen dizuten ordaintza. Baita neskatillen bat etorriko da, edo gizonen bat, erri guzia zuri erakusteko, ta esan bearrik ez, baita Batikano'ko bazterrak, azalpenak emanaz, ango Migel-Anjel, Rafael, Aita Santu, katakunbat, Tivoli, Fontana de Trebi, enparantzak, ta abarren berri. Berak lortzen dizute ere, Aita Santu'ari ikustaldia egiteko dalako «pasea». Ezkonberririk zuekin ba'dijoa, an eramango dituzte toki berezi batera ta eman errozario, domiña ta abar. Gurekin batera, Valencia'ko ezkonberriak joan ziran eta ala egin zioten.

Ikusgarriak, an, ikaragarriak dira. Guziak bear diran bezela ikusteko, egunak bear dira. Gu, Migel-Anjel'enak (punzkatu aurretik) eta Rafael'en pintaketeri begira txorabietzen egon giñan... aspertu eziñik. Asetu al izan gendun gere bizi guziko egarria.

Ez da txantxetako ibillaldia ta nekea, Erroma'k dauzkan estatu guziak ongi ikusi nai ba'dituzu. Ala ere, arritu ninduna, dalako Basurde ura izan zan. Brontzezkoa bera.

Batikano'ko eliz barruan, San Pedro'ren oiñak zere eskuz igurtzitzen dituzun bezela, basurde orreri ere ikutzen zioten... Zer esan nai ote du eskari orrek? Une artan ez gendukan inguruan gere izkuntzan itz egiten zuanik, ta italiar igurtzilari aiek, gu bezela beste errietatik etorrita, an zebiltzan batera ta bestera, piztiak eta estatuak ikusten, basurde ura ikustera joaten ziran bezela. Nere ustez, antsiñan egiten zituzten bezelako eskariak egiten zizkioten basurdeari.

Lau egun egin ondoren. Venezi'ra eldu giñan. Emen maffitarrak geiago diralakoan nago. Ederki antolatu zuten gure taldea, Guzia leun-leun. Ibillera guziak berak antolatuak izan ziran, nola gauaz «gondola»n ibiltzeko, nola otelak, nola batera ta bestera ibiltzeko ontziak, Venezi'ko edertasunak ikusteko ta abar.

Bein, otelean geundela, bertako nagusiak esan zigun: «Orain, ontzi baten joango zerate denok labe aundi bat ikustera» An, zere begien aurrean, kristalezko argi ontziak egiten ikusiko dituzu, baita zaldiak, txarriak, oilluak, berebillak eta beste eundaka jostaillu. Ikusi ez ba'nu ez nun siñistuko! Joan giñan guziok labe artara, bertako italiar aiek, oso apainduak zeuden. Aurrena, labearen aurrera eraman ginduzen, ta deitu zioten labe zaiari. Au, berealan etorri zan eta burni luze bat artu zun, ta labe barrura sartu. Burni muturrean, pasta zeramakin, minutu batzuk ondoren, guri-gurituta atera zun burnia, ta, errementari batek maillu berri bat egingo ba'lu bezela, asi zan beste burni ari antzekoa eskuan artuaz, bira ta bira, batera ta bestera, ta guk nai genduan irudia egiten zun. Ura eskua! Ikusi gabe siñistu ezin lezakena!

Gero, berealan eramango zaitue beste gela batera. Sartu bezin laister... ateak itxitzen dituzte... ta, guk, alkarri esaten genion: «baiñan, zergaitik ateak itxi...? Au, sagutegiren bat ez ote da...? Etzan ratonera, baiñan, antzekoa bai. Ara eramaten dituzten turistak, ederki engaiñatzen dituzte. Engaiñaketa ori, alegia, an sartu ezkero ezer erosi gabe ezin urten izatea zan... Ederki antolatuak daude veneziarrak turisten poltzikoak ustutzeko. Guzia negoxioa ta turist askoren ilusioa...

Ala ta guziz ere, Erroma ta Venezi ikusgarriak diranez, Itali'ra joaten ba'zera, ez utzi toki oiek ikusi gabe. Maffia ala ez, bakoitzak bere bizibidea al dun bezela antolatzen daki. Ta... ORKONPON!

E. OZKIN

ERIETAKO BERRIAK

Tolosa

«AGUR»en ETSAIAK

«Goiz-Argi»n irakurri degunez bai omen dabilza euskaltzainen batzuk gure aldizkari au debekatzeko. Egia ote? Argi apur bat ez litzake bada txarra izango.

ARTISTAK

Arestian, arte-erakusketa batean, Txillida eskultorearen zurezko lan baten aurrean; batek: «Au zer da? Etxefuegoak botatzeko makiñaren bat?»

Beste batek: «Txarkuteri batean, saltxitxoiak zintzillikatzeko sekzioa izan bear dik onek».

Eta besteak: «Auxen bai ortze gabeko mendiziana. Edo adar-jotzeko tresna».

Nekatu egin bear omen degu-ta «interpretazio» zeatza lortzen...

ZENBAKI BEREZIA

Ernani, Arrasate eta Tolosa'ri, San Juanak dirala-ta, «Goiz-Argi»k *zenbaki berezi bat eskeintzen die erri auei. Idazki interesgarriak dakars. Batean, Lopez Mendizabal jaunak, tolosar bat bai omen zan Elkano'rekin ludiari bira ematen, diolarik.*

ANTZERKIAK

«Antzerki-Emanaldia», aurten, beste zati batez ornitua izandu da. Albo errietako kolejioetako umeak antzeztu dute... Au, sariketa moduz joan da, ta Sortzez Garbia Kolejio'ko taldea (Frantzesak) irabazle gelditu da. Bakarka, artistarik onena Izaskun Letamendia Loinaz. Zorionak!

Saio ederrak antzerki zaletasuna piztu arazteko, bai orixe!

MENDIRA BIDE

Ostoz bete dira basoak. Birikak, aize bearrez. Udara da. Eguzkia bere osotasunaz agertzen zaigu, maitekor, deikor. Nor geldi kale-zuloan betiko aize txartua irentsitzen? Batzuek beribilletan (dutenak) eta ez degunok makilla eskuan oiñez, ba-goaz mendira bide... ni bertsotan, gure erria ezagutzera, ikertzera, laztantzera. Bai-bai-dakigu an goien dagoan gaillurrak, gure lurraldera zabalik daukan leioa maitekiro eskeiñiko digula, bertatik begira atsegindu gaitezen. Gure lurraldearen ederra ikusirik maitatzen ere jakin dezagun...

Egunsentiaz mendiratzean
oro pakean dirudi,
eleiz eskillak asiak dira
goizetikan tilintari,
txantxangorria gidari eta
urretxindorra abeslari
gaur eguzkiak ematen dio
muxu mendizaleari.

UXOLA

Altzatzu

—Orrillaren 14'an, igande, emen Altzatzu'n mendigoizaleen yai dirdiratsua: Zelaia' tar Yon Yoseba'ri txapel zabal, ederra eskeintzea leenengo; eta gero 1971-72'ko erriko «finalistai» dominoak bezuzatzea.

Goizean, meza Pedro Deunaren baseliza entzutetsuan esateko zan; baiñan edurra ta txirgoria ta euria ta euria, erruz, ari zalako, baselizaren ordez erriaren ondoan dagoen Otadia'ko Kristo'ren elizatxoan esan bear izan eben.

«Zelaia» mendigoizalea, berez, altzuarra da; aspalditik Zumarraga'n bizi da billobekin. Emengo yendeek «betiko ibiltari» deituten dautsoe. Orain, be, urteetan ain aurreratua egonik. ez dau utziko urterik, noz edo noz Altzatzu'ra etorri barik eta «Bargagain'ko Gurutzera» yoan barik. Oiñez, yakina.

Txapel andi, ederrak idazkun au daroa: «Gure Etxea»ko mendizaleak Zelaia'tar Yon Yoseba'ri omenaldia 1972'ko Orrillaren 14' ean». Eta «finalistak», danak erriko gazteak ziran. Guztiz 38.

Omenaldi-bazkaria bertako «Apeadero» Bar erosoan, txistu ta danborillaren soiñuak alaituz ta, pozaren pozaz, ankak, be. arinarin ta trebe-trene erabilliz.

Kanpotik etorritako mendizale-alkarteak, ain denpora txarra agertu zalako, ez eben uste ainbat izango zirenik; ala ta guztiz, 12 alkarteen ordezkari ofizialak agertu ziran: Gipuzkoa'tik, Araba'tik ta Naparroa'tik. Bizkai'tik ez ziran etorri, urrin edo dagoelako. Olako zerbait esan eusten beintzat «Gure Etxea»ko gazteek.

—Orrillaren 27'an, Gazteiz'ko «Manuel Iradier» alkarteko «GAZTETXU» taldea etorri zan Altzatzu'ra. Bai mutikotxoak, baita neskatotxoak Danak amaika-amabi urte ingurukoak. Erakusketaren leenengo aldian, Gipuzkoa'ko dantzak agertu erakutsi ebezan. Baita berezizko emakume-dantzak, be. Eta gero Araba'ko dantzak, orain arte oraindik agertzen ez ziranak; ta orain ikasketa ta araketa zeatz ta sakonak. egin ondoren, gutxi dala erakusten asi diranak.

Leenengo aldi onen amaieran euskalereskiñak yo ebezan: musu-kitarra, txirula txalaparta, ta abar... Eta itxas-arraintzale erriko yai-irudi, ezin obea, aurrera ta erakutsi be bai.

Bigarren aldian, barriz, Naparroa'ko ta Zuberoa'ko dantzak. Eta ganera, Luzaide'ko erri-yaien irudia. Au be trebe ta bikainki.

Gaztetxuok, aldi bitan, ordu bi ta luzego egon izan ziran euskal-dantzen agerketa erakusten. Txalo andi, sutsuak yo eutsaezan yendeek. Alan ta guztiz, yaia eraldu eben gazteak ez ebiltzen ain pozik, ikusleen artean uste ta gura eben baiño yende gutxiago egoelako. Iraupena, garaille atara oi da beti. Gogoeta orregaz aurrera oi doaz beti.

—Orrillaren 30'ean, Irurtzun'en «euskalyaia» zan, zenbait egunetako erri-yaien barruan tajutua. Euskal-yai orrera emengo «Gure Etxea»ko Dantzari txikiak, be, deituak izan ta an agertu ziran. Ogei ta amar bezelatsu umetxo, mutikoak eta naskatoak, 8 urteetatik 12 urteetaraiñokoak. Ordu bat ta erdiko agerraldi ederra aurrera eben ta oso txalotuak izan ziran.

Ta onegaz amaitu ei dira yoan dan illeko Orrille'ko. barriak. Orain itxoin zer barri yazoten dan datorren illean, Bagillean; ta garaia danean, orreik be ekarriko doguz.

Bitartean agur, irakurle, Jainkoaren baitan.

YURRE'TAR YULEN A. K.

Usansolo

JAIOTERRIA

Enda guztietako semeak euren Jaioterria maite izan ba'dabe, zer esan geinke euskaldunetzaz? Gure oitura, abesti ta izakera osoan argi ta garbi ikusten dogu, zein maitekor izan dauan, Euskal-Erri'ko seme batek, bere Jaioterria. Ezin Josu'k, Jurrebaso sendiko azken atala danak, izate onen aurka ekin.

Ainbat urte itxasoan igaro ta gero, ango nekaldiakaz azpertuta, ta batez be, bere sendiagandik urrun ez egotearren, legorrera eldu zan. Baiña legorrean, norberak diritxoen tokian, lanik ez, eta Galizi orlegira jo eban, bere emazte zintzo dan Olabarrieta'tar Begoña'gaz, Galdako'n obeto ezagutua, Olabarrieta' tar Zesareo euskaldun jatorraren alaba zarrena lez.

Bertokotu egin da, zuzen bidez izan bear dauan lez, gizon zintzoa dan ezkero, baiña sendi barruan, berak eta bere emazte bizkorrak, euren euskaldun nortasuna amatetan itxi barik.

Ta, emen agertzen da, idazlan onen buruan esan dodana. Norberarentzat Jaioterria maitekor; baiña guraso zintzo batentzat, maitasun ori beragandik urtendako lora barrientzat be, izatea nai. Ta onela, bere iru alabatxo kutunak, Euskal-Erri'an jaioak izan dira. Euren ordua eltzen joakela ikusten izan dabenean, Begoña'k bere tresnak artu, bere senarra urriñean itxi, ta Galdako'ra. Emen jaio dira euren alabatxoak, eta euren Kristau-urak artu, Amaia, Nerea ta Miren Izazkun izen politak eurentzat izan dirala.

Il onen 9'an, sendi jator onek, egun zoragarri bat izan dau. Miren Izazkun'en bateoa zala-ta, bere aizta Amaia'k lenengo Jaun-artzea asmatu eben gurasoak. Ta Zamalloa'tar Jose Luis jauna buru zala, len esandako egunean, arratsaldeko seiretan, euskerazko meza eder bat izan genduan Usansolo'n, zeregin orreik beteteko.

Pozgarria izan ba'da beti gure auzunean, euskerazko mezea iñoren alde egitea, ain urrundik etorri diranentzat, euren euskalzaletasuna azaltzen, alegin guztiak egin ebezan gure erritarrak, sendi onek poz andi bat artu egian, ta ori dalata, biotz guztiaz abesti mamitsu ta gozoenak euren alde, zeruko Aitari eskeiñi eutseezan; Julen zuzendari ta Amaia ta Simeon soiñulari zirala.

Zorionak Josu ta Begoña, tar Agur beroenagaz, betiko arte.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Galdakano

EZTABAIDAK

Lagun artean eztabaida sutsuak sarritan izaten dira, edatetxe ta ardangeletan batez bere, eta orreik sortuten dabezanak edo euretan geinbat izketatuten diranak, ez dira izaten jakintsuenak be. Ortik, ulertu ezindako eztabaidak eta ez beti garrantzi andikoak, sortuten dira. Orretariko alkar-izketa gartsu bat gure adizkide-talde baten sortu zan orain alditxu bat dala, ta, ondoren, guri egin euskuezan itaun batzuk, Galdakano dala ta ez dala. Baita pozik erantzun be jakin genduan gitxia, ikasi-gura ta jakingarrizko galderak ziralako. Ara emen itaun orreik:

Zenbat eta zeintzuk erri dira Galdakano'kin mugatuten diranak?—Zenbat eun-are edo neurkin-lauki ditu erri onen lurraldeak?—Lurrez, Bizkai'an zenbatgarren erria da?

Lenengo itaunari errez erantzun al izan geuntson, ondo ezaguntzen doguz erri onen muga guztiak-eta. Lenago amaika erri ziran Galdakano'kin mugatuten ziranak; baiña gaur, bigaz bat egin dabelako; Ipar-aldetik Lezama ta Larrabetzu; Sorkalde'tik Zornotza ta Etxano (gaur biak bat); Ego-aldetik Lemona, Bedia ta Zeberio; Ego-sartalde'tik Zarátamo, ta Sartalde'tik Basauri, Etxebarri ta Begoña (gaur Bilbo).

Lurralde onek daukozan neurriak zabalak dira, jakitun egon bear dabenagandik jakinda, urrengo oneik dira neurriak: 3.179,06 eun-are edo ektare ta 25 are ei ditu. Eta lurrez Bizkai' an zenbatgarrena dan, ez dakigu ziur, baiña bostgarren edo seigarren dala bai; Karrantza, Barakaldo, Orozko ta Dima'n atzetik. Ea beste batean azalpen geiago emon aal izaten dogunedo, arazo onezaz.

JAYOTZA

Bagil onen 3'gnean, seme eder bat izan eben, bostgarrena uste dot, Totorika'tar Jon eta Ortiz'tar Junebe gazte euskaltzaleak. Ori dok talde ederra! Ugatzaukeran, barriz, Aritza, aintziñako euskal izen goralgarria ipiñi dautse. Zorionak AGUR'en bitartez eta benetako euzkotar kementsu bat azi, orretariko semeen bearra ba-dau gure Erriaketa.

MUS TXAPELKEA

Neguan beste zeregin andirik be ez dabelata, mus-txapelketa bat gertu eben Ganguren mendigoizale bazkunekoak, euren batzartokian, ta ogei ta amar biñako aurkeztu ziran, danak danekin jokatuaz. Txapeldun, barriz, Arteaga'tar Joseba-Koldo ta Akarregi'tar Gotzon bikotea urten zan; bigarren, Markiegi' tar Pernan (AGUR'en irakurle berau) ta Izkoa'tar Joseba Mirena, Bagil onen 9'gnean, aretoan bertan, sarien banakuntzea izan zan, txoli ta beste sari pilloa, beste ainbeste muslarien artean. Zorionak txapeldunei ta jolas ori alaituten alegindu ziran guztiei.

URBIA'N

Beste aldi askotan lez, Bagillaren 4'gnean, igandez, Urbia'ko zelai zoragarrian izan giñan, erriko Ganguren mendigoizale taldekoen artean. Atsegin yakuz izan be, Aizkorri'ko mendiarte orreik, ango artzain jatorrak, artalde ederrak, bertaratuten diran euzko-mendigoizale kementsuak ta abar; dana da an, gure lurraldea maite dabenentzat, pozgarria, ta ainbat geyago, mendi eder ikusgarri artan, gizon euskaltzale jatorrak ezagutzeko zoria aurkitzen danean.

Aspalditik, Urbia'ko txadontxo apaiñean igandero ta urte askotan mezea emoten daben Aita Lasa ezagutzeko nai bizia genduan, ta, era non, bidean gorantza gingoazela aurkituten garan ta gero barriz goyan, txadontxu aldamenean. Ta, izan genduan izketaldi laburrean, laster ikusi genduan bere izakerea, apala, jakintsu askoren lez, umilla, euren lan txalogarrieri garrantzirik ometen ez dautsen eleiz-gizon jakituna ta, zelan ez!, euskaltzale jatorra. Beste egunen baten, alkarizketa sakonago bat egiten, Jainkoak lagun, aleginduko gara, berak nai ba'dau, beintzat.

Eleiz aldameneko aterpe txukunean, beste adizkide jator batzuk be egin genduzan, bertan egon giñan aldi laburrean; euskaltzale zintzoak eurak, eta euskal aldizkarien irakurleak. Gure agurrik beroenak danori AGUR onen bitartez.

BASA-JAUN

MUNGI'TIK

IKASTOLEA

Mungi'ko ikastolaren alde, Atleti'ko eta Donosti'ko Real' eko zaarrak ostikoketa bat jokatu eben egunean, norbaitek au esan eban: «Era orretara ateratzen dan dirua ez da ikastolearentzat eta erriarentzat onurakorra.

Auxe esango dautsut, gaur ikastolearen ardura ta elburu bakarra, ezinbestean, aurrera jarraitzea da. Orretarako, egokiago litzakela erriko edo ikastolako umeak osotutako antzerki bat emotea? Bai, nire iritxia be ori da, baiña gaur, ikastolea biziko ba'da dirua bear da, ta orretarako, erritarrai, zelan edo alan, 25 lauerleko ateratzea.

Ez da egia, antzerki eta euskal abesketetara ikastolako umeen gurasoak joaten dirala? Nire ustez, naikoa kentzen jake benetako euskaltzaleei, batetik umeak ikastolan, bestetik euskal aldizkari ta idaztiak, ta abar...

Era onetako jaiak, ez dagiguzan txartzat artu, gaur diran eran gauzak egonik, olango asko egin bearko dala uste dot.

SUKALKI-EGUNA

Urte guztietan bezela, aurten be, San Pedro'ren jaiak igaro ondoren sukalki-eguna ospatuko dala nunbait, entzun dot. Ta, or dabiltza jai ori antolatzen gazte talde eder batekoak. Euren elburua, erriko jentea ezi bidean jartzea da, ta erria eziko ba'da, beragaz jolastu ta artu-emonetan jarri bear da. Baiña, itxuraz, erriaren gaiñetik dagoz batzuen interesak eta elburuak, ta oneik aurrera eroateko, ezin erriari gauzak argi erakutsi. Dana dala, gazte talde orrek, zuek egin-egiten dozue, naizta beti guztiz ondo egiña izan ez. Baiña geienetan ederto egin dozue ta zuen borondate ona da danorren gaiñetik. Ea aurtengoak ondo urteten dauan, erritarrok ondo igaro dagigun.

TXISTULARI TALDEA

Mungi'n txistulari talde bat daukagu; onen zuzendari Madariaga'tar Gotzon da. Ikastola aldeko jai egunean, saio ederra eskeñi euskuen. San Pedro-etan bere, beste urteetan lez, eurei entzuteko aukerea izango dogula uste dot.

Talde au osotzen dabenak, oneik dira: Madariaga'tar Gotzon, zuzendari; Madariaga'tar Ander (txistularia ezeze, txirrindulari trebea be bai); Bitor Arantzamendi; Altuna anaiak; Urresti'tar Andoni; Jayo'tar Joxe Antonio; ta gaztetxoak, oneik: Idarraga'tar Xabier eta Jokin. Bateron bat atean itxi dotelakoan nago, baiña parkatzeko eskatzen dautsot.

DANTZA TALDEA

Aldi baten, Mungi'n dantza talde bi geunkazan; gaur ostera, bat be ez dago. Baiña umeeri dantzak eta abestiak erakusteko arduratzen dira



neska gazte bi: Sorkunde ta Lorea. Bear ba'da, gaur ez dautse iñork eskertuko bere lan ori, baiña ume orreik nagusi egiten diranean eta dantzan jakin, eurak eta Euskalerriak eskertuko dituez. Zorionak eta jarrai orretan!

ITURBURU'K

INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

NAUSIEN URRATSETATIK

Pozik be pozik bialtzen dautsut, ene jaun orri, emen Boise urruti onetan, asi diran jaien lenengo barriak. Baiña orretan asi baiño lenago, beste au be esan bearrean naukazu: Azkenengo illabete onetan izan ditugun lan, joan-etorri, ikerketa, ari dei, oni erantzun, lanetik urten eta gaberdiraiño barriz lanean ekintzeak. Danori, gure euskal-jai eder au gertatzen egin bear izan doguzan ainbesteak, orretxek eurok bakarrik dira neke guztien ordainketa ederrena. Umetatik ez naiz izan sekula, illabete onetan aiña urduri, kezkatsu, ondo izango ez etedanaren bildur, baiña ezta onenbestean be zoriontsu, ainbeste euskaldun anai barri ezagutu eta lagun egin al izan dodaz, gauzak aurrera ta egunetik egunera obeto etozala ikusi, andik eta arutzagotiko deiak ba-datozela esaka;ez, ezin zei ulertu ezta nabaitu be, emen Boise'ko euskaldunak izan ditugun ordu arduratsu eta pozgarriak. Ta gaur lenengo eguna dala, oraintxe bertan amaitu da, Opening Basque Cultural Night, izeneko lenengo ekiñaldia.

Ez, ez da izan or, gaur Bagil onen bigarrenez, ostirala dalako, jente askorik, ez gendun uste be, ala ta be, uste gendun baiño askoz geiago etorri da, jakiña geienak uri onetako bertokoak; biar, larunbatez asiko dira etorten erbesteetatik, ta itza emon daben erdiak ba'letoz be, uguri be ugri izango gara.

Naste pixka bat egiten diardut, gauza bat esan orduko bestea datorkit burura, baiña begira, urriñetik, Colorado'tik Larretxea'tar Jon eta Gorriño'tar Joseba Iñaki'gandik, emengo pelotarieri nor-geiagorako dei bat etorri zan, eta estu giñan ez gendun ba emen pelota lekurik. Ez gendula? Jakin ez guk, baiña...

1912'gn urtean, Anduiza izeneko jaun batek, pelota-toki bat eraiki eban, ta bere semeak an jokatzen eban bost bat urteko zala, jokatu edo jokatzen ikasi; gero, orain 32 bat urte, saldu egin eben eta, aren izatearen barria be galdu egin zan euskaldunon artean. Ara baiña orain, leku bat bear ta kezkaturik barri bat egiteko asmoa be ba-zan, baiña galderak egin ondoren, dirutza izugarria bear genduala be jakin. Orra baiña norbait gogoratu,



Boise'ko Oinkari taldea

Baiña, gaurko jaiaren barri emotera nentorkizun ta ara zelan bide-galdu naizen. Ba, gaurko jai onetan gauza ederrak ikusi ba'ditugu be, notin birentzat izan da berezi-berezia: Letamendia'tar Leandra andra jatorrak, bere 98 urteegaz, gaurko jaian aipamen aundia lortu dau, berau izan da euskal-jai oneitako «Amuma» aukeratua, an ziran danen autarkiz. Bestea, Eiguren'tar Silvia, au ostera, neska gazte argia, Jai oneitarako Erregin aukeratua izan da. Orra ba, lenengo gabe onetan, or doguz Amuma agurgarria eta Erregin apaingarria. Amuma aukeratzean dana errez izan ba'da, ez orrenbeste erregiñarenean, emen neska polita izan eta euskal gauzetzat asko jakin bearra zan; ez da ba gure aurtengo



Jaietako Batzorde nagusia

izan zala pelota-leku bat, eta aren jaubearen semea be bizi zala, Andiuza'tar Jon. Billatu, nori saldu jakon jakin, nun egoan ikasi, ta egun gitxi barru, eskuratu gendun. Onetan, bene-benetan eskertu bearrean gara «Briggs and Associates» igenieru alkartea, eurena da ba berau, eta errez-errez ipiñi dauskue: garbitzearen truk. Ta garbitzea ez da izan lan makala. Goiko sapairaiño tresna zar eta baztartuegaz beterik egoan, alperriko gauzak gordetzeko erabillia izan da ba. Baiña emengo euskaldun zar eta gazteen ekiñaldiari eskerrak danori garbitu al izan da, ta biar eta etzi, pelota saio ederrak izango ditugu.



Euskal-neskatillegaz Danny Kaye

erregin au polita bakarrik, euskaltzale jakintsua be bai, ta ez edozelakoa.

Jai polit au Capital High gymnasiun deritxoen aretoan izan dogu, ta eskerrak emon bearrean gara bertako arduraduneri, Baita erriko agintarieri be, ta Idaho state onetakoeri, emen Buru danari, Nevada'n buru danari, Gotzain jaunari, ez bakarrik baimenak eta aolku onak emon dauskuezelako bakarrik, baita geure artean izan ditugulako be.

Oinkari dantzariak, emen bertokoak, izan ziran illuntzi ori bete ebenak. Danok zain gengozan «Singing Shepherd», Artzai abeslaria deritxoen Irigarai'tar Louis Michel'i entzuteko, ta an etorri jakun Nevada'ko Reno'tik, eta gauaren zatirik aundiena artu euskun, ez geuntzan ixilten laga, ta barriz eta barriz abestu bear izan eban.

Gero, etxeko Al Egiguren'ek bere aldetik eta Nevada'ko Fallon'etik etorri jakun Miola'tar Linda'k piano saio ederra emon euskuen.

Ta, an ziran jai oneitan arduradun izango diran danak. Ba-dakizue, ala ez dautsuet oindiño esan? Igandean «kermes» orreitako bat izango dogu «Western Idaho State Fairgrounds» orreitan, ta an salketa txabolatxoak izango dira, danetarikoak. Ba-dakizue, olakoetan, ogerlekoak amar ogerlekon saltzen dira, ta orretarako, ortik, Euskalerriti'k ekarritako gomutagarri politak eta emengo etxekoandrek eta ertilari eta al-daben edozeiñek gertatutako janari, marrazki, apaingarri ta gauza politak an salduko dira, eta euskal-ikasketa sakon bat egiteko aiña diru lortu.

Luze joan naiz, eta jaiok amaitzean idatzi bearko dautsudana luzeagoa izango dan bildurrez, amaitzera noa. Ez dakit gaur lorik egin al izango dodan; biar eta etzi doguzan jai eta ainbeste euskaldun ezagutzeak urduri nauka. Ondo lo egin!

SYLVIA'K

Biziaren dardara

Aurrerakuntza. Bizia obetutea. Gizonaren, betiko, asmoak dira. Biziaren lenen sorraldian bezela, gaur izango ba'giña, txarto aurkituko giñan. Gizaldiak, beti egin dau aurrerantz. Egiz, lurrak izan ditun giz-aroak, ezin giñaikez iñola bardindu. Lenengo sortaroa ondorengo artzaiñaro ta lugin aldiagaz ez doguz bardinduko. Gizadia, aurrera etorren jakituriz, eta bizi- bidez aurreratzen.

Gaur egunean, ainbeste bizi-gai askoz biziagoak aurkitu dira. Lur guztia ots batean erretako aski litzakez. Poza ta dardarea, era batera, emoten ditue. Indar orreik bultzaka datoz suaren garragaz ta oiñeztarrien ariñagaz. Buru gogorkeriaren bitartez indar orren aurka, iñoz ezin jarri leiteke. Alperrikoa ta kaltegarri jako, su orrek erre egin go leuke-ta.

Gizonak bere baitan daroaz, sortzen arturiko almen indartsuak. Oneik gizonari ta gizadi osoari deika dagoz. Lagun guztiok ba, almen oneik argitu ta zabaltzeko eskubidea ta eginbearra daukaguz. Au egikeran, geure gizontasunari erantzuten dautsagu, baita, geure Egilleak norbere nortasunean ezarrita itzi euskun eginbearrari be.

Barruko deiari erantzutea da beraz, gure bizitza ontako eginkizuna. Au ez egitera, geure bizitzea salduko dogu, ta geu geuretzat otso biurtuko gara otsokeri baltzenaren bidez. Ta jokabide ori baltza da. Gure izatea lantzeak berezko agindu bateri erantzuten dautso, ta gizadiak, berez-berez iltea nai ez ba'dau, era onean, aurrerapidearen bidetik jokatu bear dau.

Gizatalde bakoitzak bizia dauka ezaugarri askogaz eratuta. Iturri batetik sortua izanik, gizadia erri taldetan eratuta daukagu, aldien gora-berak dirala-ta. Guk be ementxe, lurraren egal ontan, Euskal-erria sortu genduan emengo jendearen izakeraz, izerdiz ta izkuntzaz. Erri onek bere izakerea ta bizikerea ditu, ta berak dituan bitxirik ederrenak geuri damoskuz.

Ta onen artean bat, ederrenetarikoa, geure izkuntzea da. Urte askoren bizia ta indarra daroaz. Orain arte eroan daben bidetik, gizon jakitunentzat izkuntza arrigarria izan da. Zentzun eta jakituri aundikoa batez be. Izkuntza onek agertzen dauskuna da, erri zurra, emen bizi izan dala, naita euren asmakizunak liburuetan izteko alperregiak izan ba'dira be.

Guk, orain, bide bi daukaguz aurrera jokatzeko, gure izkuntzaren aurrean. Orain arteko Euskal-erria ezagutu, onartu ta beroni jakituri ta indar barriak emon, beronek dakarren sortzetiko bidetik; edo bestelan, geure erria ukatu, zapaldu ta apurtu, lendik datorkigun izakera ta izkuntza birrinduaz, ta orain arte, iñundik iñora, onen bizi ta bide izan ez diran barrikeriak sortu ta ezarriaz.

Gora-bera ontan, naste aundian sartuta dagola ainbat euskaldun jende dirudi. Erriaren bizia, erri barruan sartuta, argitu ta aurrera atera bear da. Erriaren gogotik landa bizi ba'naz, edota, etorbarria ba'naz, lengo erria au baiño geiago maite dodalarik, bidezko argirik ezin emon neikio maite ez dodan gizarteari.

Euskeraren naste-borraste au, barrutik ala landatik sortu dan ez dakit. Edozelan be etxetik at-zaleak dirudie. Irakurten ditugun idazkai askok eta askok, euskal kutsurik ezagaz, emengo giroa galduta darabille. Erria alde batera itzi, ta ikastoletako kaioletan norbere gisara sortzen dan izketeak azkena emongo dautso gure izkuntzari. Ta erria oiñarritzat artuta, jakituriz doan izketeak edertu ta osotuko dau gure izkuntzea.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Larregi ote gera?

Lantegiak eta industriaren asierak, bizieziña ekarri zigun. Marx'ek, arlo au, azterkatu ondoren, argi ta garbi akats auek agertu zituan. Baiña, Marx'en utsegiterik aundienetakoa, akats eta bizi-eziñ onen erru guzia, kapitalismoak zuela, esatea ta baieztea izan zan, Marx'ek etzuan ikusi nai izan, gizadiaren geitzea ta onek zekarren ondorenik.

Garai artako Europak, gaur aurreratu naiean asitako laterrien antz aundia du. Ta gizona naiz eta aurrerapen zoragarrien jabe izan, ez du oraindik gizadiaren geitzearen arazoa zuzendu.

Erri geienetako lantegietan, leku geiago antolatu arren, eskaleak geiago dira; alegia, lanerako eskabideak. Karl Marx'en (1818-1883) garai orrek, gaurko Europaren itxura aundia dularik, orduan ere, gaur bezelaxe gizadiaren geitze izugarria zan; Fourastie'ek esaten duanez beintzat.

XVIII'garren mendea eldu zan, eta gizaldi onekin batera, makiñen asmaketak eta lantegi ugaritzea. 1777 urtean, lurrinmakiña asmatu zuten. Onek olako aldaketa sakon bat eragiñaz, errien aunditze ta geitzea ekarri zuan.

Marx'ek gizarteari egin zizkion ikusmirak eta kritikak, Inglaterra'n bizi izan zanean, egin zituanetik gizaldi bat gero (1700-1800) aldikadan, 5 milltik 10 milloira, ta emendik aurrera gero ta azkarrago (1800-1900) 10 milloitik 38 milloi biztanle: 100 urtean, ia lau aldiz geiago. Alemani ta Europako beste errietan, beste orrenbeste gertaturik.

XIX gizaldian Europako lantegiak aurrerakada aundia egiñagatik, langilleen eskeintza, lan-tokiak baiño geiago ziran. Geiegizko eskeinteak leiakada bildugarria sorturik, lantegietako nagusiak egokiera au, ongi baliatu zuten.

1798'garren urtean Robert Malthus'ek garbi agertu zuan, gizadiaren geitzeak gizartearentzat dakarkien arriskua. Malthus asko kritikatua izan zala, egia da. Baiña, egiazati aundi bat ere, berekin izango zuala, da gezurra.

Diru-aldetik at, gizadi geitze onek zalantzarik gabe, gizarteari arazo aundiak sortzen dizkio. Baiña, Marx'ek etzuan egi au, ikusi nai izan, bere idatzi ta esandakorekin ez bait'zetorren. Beretzako danen erru, kapitalismoak bakarrik bait'zuan. Orregatik «El Capital»en egillea bere kemen guziaka Malthus'en aurka altza zan, esanaz: «Ingeles onek azaldu duana, elizako mintzoera ozen bat dala». Marx'en iritzian, Malthus ez jakin bat da, alegia (berak esatera). Marx'ek gizadi geitze au, alde batera utzirik, emen guziak kapitalismoari egotzi zizkion. Marx'ek «pauperismo» aburubideari tinkatuaz jarrai zuan.

Baiña bestalde argi ikusten da, errien aurreratzean eta gizadiaren geitzeak, gizarteari eziñ-besteko arazoak ezartzen dizkiola. Lan-gintza estaduaren eskuetan aurkitzen diran erri sozialistak, eta aurreratze bide ortan beren urratsak ematen ari diranak ere, arazo ontantxe sartuak daude. Adibidez, Cuba, Egipto ta baita Sovietikoak eta Txina ere. Erri auetan aur ta gizaldi geitzeari, beneurriak jarri dizkiote beintzat.

Karl Marx Inglaterra'n bizi izan zan aldikadan, arazo au, ikusteko aukera izan zuan.

BURNI-LAN

AGVR

III URTEA
46 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - GARILLA - 8

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

IRAKASKINTZEA

Ikas-urte bat igaro jaku ta, gure ikasleak oporretan dagozen artean, gai oneri buruz, aztertze bat egitea ondo izango da; onelan, urrengo ikas-aldirako obeto gertatuta egongo gara.

NORTZUK DIRA ARDURADUNAK

Egia esan, dakianak irakasteko berezko eskubidea ta eginbearra dauka. Jakintun diran guztiak dauke ba, ez dakienai irakasteko ardurea. Baiña maillaz beteriko gure gizarte onetan, ardura au be mailla baten sartu bear, lan oneri be erakunde bat emon bear.

Irakaskintzearen ardurea gaur artzen dabenak laterriak dira: eurak ezarten ditue legeak, eurak egindako ikasteen agiriak emoten ditue, eta sarritan euren onerako irakaskintzea okertuten dabe, batasun bat lortzeko berezitasunak konturatu barik.

Gero laterriaren barruan eta bere legepean irakaskintzarako bazkunak sortzen dira, euren artean lanik geien egiten dauna Elizea izan leiteke gaur.

Baiña irakaskintzan ardurarik geien artu bear leukenak gurasoak eurak dira. Gaur arte laterri-eskoletan gurasoak ardura gitxi artu dabe: laterriak egin ditu eskolak, berak bere erako maixuak ezarri, berak eskoletako diru bearrai erantzun... Gurasoak euren umeak bialdu dabez eta kitu. Ardurabakokeri ori zuzena dala esatea, ketokeri aundia litzake.

Bai laterriak, baita gurasoak, irakasleen eskuetan izten dabe umeen eziketea. Ortik sortzen da andereiñoen, irakasleen eta maixuen ardura astuna ta bildurgarria. Ain garrantzi aundikoa da, izan be, gizon batzuk beste batzun ezitzailleak izatea! Eta ain adi-bearrekoa!

* *

EUSKAL-IRAKASKINTZEA

Aspaldion, gure artean, ikastolen jaiotza pozgarria aurrean dogula gagoz. Benetan pozgarria ikastolen ugaritze au: ume asko, euskera garbi ta ederrean berba egiñez, euren ikastoletara joaten ikusten doguz; ainbeste andereiño, laguntzaille ta irakasle sortu dira gure artean, bear dan baiño gitxiago izan arren ainbeste guraso euren seme-alaben eziketaz arduratzeko alkartuta ikusten doguz...

Baiña ba ditu ikastoleak bere kezkak: eziketa-lege barriak dakazan eragozpenak, lege aldetik agertu bear daben oz topoa, irakasleak eta irakastokiak bear dan lez gertatzeko dirurik eza, ikas-liburuen urritasuna... Jaio-barri dan ume gaizoak emoten dauan urdiritasuna emoten dauskue ikastolak. Eta, au txarrena, arrisku bildurgarri oneitan, geure arteko burrukea ta aditu eziña.

* *

ERLEJIÑOA IRAKASKINTZAN

Onetan be gure arteko ezdabaidak ugariak dira. Eta ez gure artean bakarrik.

Ikastoletan, gure ustez, erlejiñoa irakatsi bear da. Eta mailla guztietako ikasleai. Ez azal utsezko erlejiñoa, ez buruz ikasitako eta aditu bako otoitzezkoa, ez ikasleak aditu ta ontzat artu bakoa... baiña bai erlejiñoa.

Erlejiñoak aukerapen bat izan bear dau edo ez da erlejiñoa. Eta ume txiki batek egin legike aukerapenik? Baietz uste dogu: bere neurriko aukerapentxua, eta bere erara, egin legike ta egiten dau. Adimena daukan neurrian dauka aukeramena be. Aukerapenik egiteko gai ez ba'litz erlejiñoa onartzeko be ez litzake izango. Eta adimena argituez joango dan lez aukeramena be sendotuez joango jako.

Baiña ikasleari erlejiñoa agertzea ondo, adi-bearreko gauzea da. Zelan jatzi orretarako umearen maillara? Au bai au eziketearen arazoa!

Noiz erlejiñoa? Umearen zentzuna agertuez datorrenean eta neurri orretan.


Nortzui erlejiñoa? Ume guztiai, baiña bakotxari bere maillan, berak aukeratuez

Zelan erlejiñoa? Barruko bizitza lez, nortasun osoan sartzen dala.

Baiña... ukatu ez, obeto egin bear dalaren aitzakiz.

Umeai zor jaken itzaltasuna izan daiegun eta ez gauzak lez geure gurarien arauz erabilli.

AGVR



Basetxeak aienatzen diranean —esan eban norbaitek—, euskerea be aienatuko da. Zeberio'ko basetxe zar au, baztartuta, laguntza bage, bizi-lagunik bage dago. Baiña... zutik! Zer esan nai ete dausku? Euskereak iraungo dabela norbaitzuek baztertu izan arren?

(Ibabe'ren argazkia)

BILDURKERIA

Gizonak era askotakoak izan arren, batzuk gogoz sendoagoak, beste abtzuk makalagoak, euren izatez bildurtiak dira. Ain da bizia gure iraun-gurea eta ain biguna biziaz dogun loturea! Lotura ori, ari me ori, etengo eta dan bildurra errez sortzen da gugan.

Indargeak gara, eta ziurtasun bat lortzeko indarra bear; izadiaren jabetasun bat bear ziurtasun ori lortzeko, eta jabetasunetik urrin egon; gure oinpeko lurrak noizean bein ikara egiten dau eta guk berau gelditzeko indarrik ez dogu izaten; gure buru gaiñean diran izarrak iñoz kilikoloka asten ba'dira edo euretarikoen bat gure lurtxuaren aurka urreratzen ba'da, ez gara iñor bera gelditzeko; gu baiño indartsuagoak diran abereak, basamortutik urtenda, gure artera etorten ba'dira, eurak menperatu orduko berandu izan ledike. Eta orrez gaiñera, gizonak, geure artean sorerazten dogun bildurra. Azkenengo au aztertu daigun apur bat.

* *

Gizonak geure artean sorrerazten dogun bildurrak iturburu asko ditu.

Iñoz geure artean zabaltzen dogun sorginkeriak dakarsku, ezelako zio barik, bildurra. Ba dira egun bildurgarriak, zenbaki bildurgarriak, jazoera bildurgarriak...

Beste batzutan, gizonok alkarreri egin geinkiozan kaltean izaten dira bildurraren iturburu, batez be gudak, geure arteko zemaiak, edo laterri artekoak.

Erlejiñoa bera be iñoz bildurra ezarteko bide izan dogu eta «jakituriaren asierea» dan bildurra onen elburu lez artu dogu.

Au baiño oinkada txarragorik be emon dogu gizonok: bildurra gizarte-arazoak atontzeko bide lez artu dogu eta azkatasunerako egiña dan gizona bildurpean kikilduta itzi dogu.

Goikoen aldetik bildurra ezarteko epaiak egiten dira eta errudun artu diran gizonak il be bai, orretarako espetxeak, zigorrak eta zemaiak. Bildur apur bat gaiztoak baretuteko bearrezko izan leiteke, baita zuzentasuna argitaratzeko epaiak be, baiña *bear dan neurriz...*

Menpekoen aldetik be bildurra bide lez iñoz artu izan da: izkilluak agertuaz, gizonak baituaz edo oratuta eukiaz, diru-artzeak gogortasunaz egiñaz, berbaz edo idazkiz zemaiak egiñaz.

* *

Bidezkotzat jo bearko ete doguz bildur-ezarte oneik?

Bildurra bide lez artzeko, oiñarri batzuk, lenengo, ezarri bearko jakoz. Esaterako: eskubide ziur bat lortu bearra, beste bideak ikusi ta aztertu ta ibilteko alegindu ondoren, eta bear dan neurrian.

Ezin bidezkotzat artu bildurra gizarteko arazoak zuzentzeko betiko bide lez edo norberekeri batek eraginda edo eziketearen oiñarri lez edo erlejiñoaren zuster lez agertzen danean.

Bildurra kendu eta zentzuna ezarten lan egin bear dogu. Bildurrak azpiratu egiten gaitu; zentzunak azkatu. Bildurrak gure bizitzea illundu ta itundu egiten dau eta buru argitasunak osotu ta poztu. Noiz etorriko ete da bildurkeria bearrezkoa izango ez dan aldi zoragarria?

GAMIZ

NORTZUK GUZURTI?

Aste batzuk dirala, Zeruko-Argia'k argitaratutako salakuntzari erantzuten zerbait idatzi nuen, Kardaberatz eta Erri-bide taldeak astintzen zituan idaz-lana aitzakitzak artuta. Andik astebetera nere aspaldiko adizkide baten eskutitza artu nuen: Kaputxinoen nagusiari bialdutako eskutitz aren kopia bat bialtzen eustan; euskeraz egindakoa; izenpetu eben jaunen izen-eta guzti. Ez egoan an ez Kardaberatz ez Erri-bide taldeen izenik, ez sellorik... Ta nere lagunak iñoanez, itzez-itz gaztelerara itzulita bialdu eutsoen kaputxinoen nagusi orri. Nun eta nork asmatu du Zeruko-Argia'n argitaratu dan ipuiña? Zelako asmoagaz? Zergaiti, ez dabe eskutitz ori ososorik argitaratu? Nor dabil izenpetu gabeko edo «konpondutako» kopiak bialtzen? Kaputxinoen nagusi orrek erantzun bei, ala... ez al dago Zeruko-Argia bere itzalpean? Aldizkariaren izen ona gorde bear dala? Baita beste alkarte orreiña be.

Egia esan, zorioneko eskutitz ori irakurri ondoren lengoan geratu naiz. Egi osotik guzur osora izaten dan aldea aundia da, baiña aspaldiko urteetan korapilloan sartuta gagozanontzat sua nun dagoen erakusten dauskuen txingarrak ikusteak ez gaitu bapera arritu. Ori izenpetzen daben jaunak ezagutzen ditugu, ta gizontasunik iñork ezin dautse ukatu, gizontasuna zer dan dakian iñork beintzat.

Ez neuke Zeruko-Argia'ren 484'gn zenbakian agertzen dan Arostegi apaizak egin daben eskutitz labana aitatu barik itzi nai. «Nere euskalzaletasuna, batik bat, Kardaberatz Bazkunari eta bere maixu D. Manuel Lecuonari zor diet. Beste gauza asko bezela gerlak desegin zuan gure bazkuna. Orain bi urte...» Eta, gero, «Kardaberatz bazkunaren izena erabilliz batzuk izugarrizko salaketak egin dizkiote Zeruko Argiari», «azpi lan orretan ez du parte artu gero Kardaberatz bazkunak...»

Barri emoilleak, geroago, onela jarraitzen du: «Hauzi triste hau, modu batez edo bestez, taldekoek konpondu edo argitu beharra dute edo zuten».

Bapo, bapo, mutillak! Ori dok «kontratakea»! Nork pentsatuko ete leikean, orain dala urte pare bat Lekuona jaunaren izen onak orrenbeste laguntzaille ta goratzaille izango zuanik! «Azpi-lanaz» mintzatzen da Arostegi jauna... nun egoan Kardaberatz'tar sutsu ori, D. Manuel'en aurka zortzi ale luzeko anonimoa zabaldu zanean? Guk dakigunez, Etxania'tar Nemesio'k bakarrik erantzun eutson... eta entzun zituan entzuteakoak Zeruko-Agia'ren «orma arteko» batzungandik. Ez egoan baiña oindiño «Zenbat gara» saillik; anonimo egilleak, bai, bearko eban laguntza pixka bat, makiñaz, multikopiztaz eta abar, agertzeko... ta ba-liteke Eibar'tik urrun ez izatea arranoaren kabia.

Baiña Arostegi'ri, bere eskutitz orren ondoren argitaratzen diran lerroak, irakurtzeko esango neuskio. «Beste hau ene seta dateke baina garbizaleen «idatzi» «gotzain» «abesti» eta abar alde batera utzi behar dugula uste dut, hoien beharrean euskera jatorrean (bai!) (sic nik!) «escribatu» «izkribatu» «apezpiku» eta «kanta» asanez. Onen ondoren, barriemoilleak, batera datorrela adierazo ondoren, onela amaitzen du: «Orrez gainera arrazoi duk «leku askotan irakurria zera» esaten duanean, Behar bada hortzen diagok hauziaren mamia. Eta hi, tontoa ez haizenez, badiakik. zertaz ari nauan!»

Jakiña! Ez zuretzat tontoa ez dan lagunak bakarrik, guk, tontuok be, ba-dakigu zertan ari diran norbaitzuk. Argi ta garbi, idazle, aldizkari, alkarte ta «euskalzale» batzuen iritziak erakutsiko ba'litzakez, linboan bizi diran asko itxartuko litzake... ta ori komeni ez. Oba dabe, oraingoz beintzat, «kamaleoiarena» egiten jarraitzea: Kaputxinoentzat, eleiztar; «intelektualentzat», aurrerakoi; erriarentzat, errizale ta abar. Gero, «gurea guretzat eta zuena erdibana... ta apurka-apurka dana etxera».

Ba-dakizue, adi bidez, zelan sortu zan noizik-beinka gure aurka egiteko «parapetoa» dan bizkaiko «Anaitasuna» aldizkaria? Berriatu jaunak bai, ta ez du Gernika'ko batzarra azturik izango. Ba-dakizue beste «aize batekoa» zaneko zorrak noren lepoan geratu ziran?... Ez? Argi dago, beste orreik nai daben erara idazten, edo eurenez, «iskribitzen» asiko ba'litzakez, bear ba'da, lo dagozan laguntzailleak esnatu ta galduko leukiez, eta oraingoz ez jake olakorik komeni. Iru margodun errizale «erromantikoak» bear ditue dirua emoteko... gero, alperriko margo bi zelan kendu ba-dakie; gurutzearen ordez, orratz bat edo igitaia ta maillua, zelan sartu, ta lagun txotxolo orreri, ostikadea, ta ala!

Ez lagunak. Kardaberatz'tarrak edo Erribide'koak, ezer izenpetu ez ba'dabe, or konpon! Baiña, kokodrillo malkorik ez, arren! Eleiztar alkarte ta aldizkariak eleiztarren eskuetara! Ta beste orreintzat, zergaitik ez?, eurenak argitaratzeko eskubide osoa, baiña kontuz!, aurrez-aurre aurpegia erakutsiz eta ez azpijanez!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

XENPELAR-SARIA

1972'arren urteko «Xenpelar-saria», Euskaltzaindiaren ardurapean eta Centro de Atracción y Turismo'ren laguntzarekin antolatua izan da, oñarri auekin:

1) Iru sari izango dira iru bertsosail onenentzako: lenengoari, 12.000 pezeta; bigarrenari, 8.000 pezeta; irugarrenari, 5.000 pezeta.

2) Bertso-saillak, azkeneko «Xenpelar-saria» geroztik argitaratuak izango dira; 1971-VI-10'garrena geroztik alegia. Berdin da bertso-paperetan, egunerokoetan, asterokoetan, illerokoetan edo beste edozein agerkaritan argitaratuak izatea.

3) Bertso-saillak, erri-literaturaren maillekoak eta eskolakoak izango dira.

4) Egilleak bost ale zuzenbide ontara bialduko ditu: Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, Bilbao.

5) Epailleak, Euskaltzaindiak aukeratuak izango dira.

6) Bertso-saillak, 1972'gngo Dagonillaren 15'garrena arte bial ditezke.

7) Sariak Donosti'ko euskal jaietan banatuko dira, 1972'ngo Iraillaren erdi aldera alegia.

EZIN... BUZTARTU

Ez noa, irakurle, nerez ezer esatera. Zeruko-Argia'ren 484'gn zenbakian agertutako idazlan biren zatiak barriro idatziko dodaz. Lerro batzuk Garate'tar Gotzon'en «Unibersidadea-Baserria»tik artuak. Besteak, «Mitxelenaren idazlan hautatuak»aren kritikatik.

* * *

«Egia borobila esaten zigun Basarrik 'Zeruko Agia' azkeneko ale batetan. Euskera ikasteko Orixek eta beste askok baserrietara eta bordetara jotzen zutela». Eta geroxeago: «Baserria da oraindik euskeraren gordeleku. Hor daukagu euskera aintzinako euskaldunek egiten zuten bezelakoa».

* * *

«Irratietan, biltzarretan euskera BAT behar da, BAKAR BAT; ez mila «ama-euskera» arlote eta zarpail, otoi, beraz, onar (h'a galdu, aurki) dezagun bide bakar bat; Euskaltzaindiarena. Utz dezagun alde batera, ausarki eta lasai, aspaldiko gure arloteria; eta teknika arazoetan mintza bitez teknikoak, eta isil bitez gainerakoak. Hori da batasunerako bidea. Eta bide hori «jebismoaz», ezjakintzaz eta «taifakeriez» bestealdetik abiatzen da».

* * *

Len esan dogun bezela, gu, «jebook» ixillik, baiña h'ak alde batera, Garate'gaz bat gatoz... eta bere idazlana osorik izenpetuko genduke.

Baiña, Gotzon adizkidea, Odriozolatxo bordan be h-zurrutean ete-dabiltz ba?

ARENAZA'K

POZAK ETA KEZKAK

Gaur azalduko dogun poz bakarra auxe da: Ba-dirala oindiño urre-gorri naiz urre-urdiñari saldu eustatzen euskaldun biotz batzuk, ta Kaputxinoen nagusiari, kezka barik eta bildur barik, eskutitz bearrezkoa bialdu dautsenak, egi biribillak esaten, eta euskal odoleko gizasemeak ondatzen alegintzen diran salduak, txarri-ukuillutik argitara etaratzen.

Eta gaurko kezka bakarra, argitaratuko dogun bakarra, beste auxe: «bi aldeko extremo orreik» «defensibara» jarri zaitue, orrein zirkiñeri erantzuteko ez dozue buru ori larregian nekatu, ta auxe erantzuten zabiltze: «Ez dala idazti zoragarri ori Kardaberatz taldeak ezta Erri-bidekoak egiña izan». Ori ez egon esan bearrik, ba, aldi aretan, ez lenengoa era-barritua ezta bigarrena sortua ziralako, ezin ba ez danak ezer izenpetu. Beste au da sator orreik entzun nai dabena ta zuek «defensiban» ia esan be esan dozuena, itz barik; «idazki a ez egoala ondo», orrenbeste uste izatera etorri lei irakurlea-ta.

Ta argi ta garbi esan bear dogu: Txotxolokeri guzti orrein artean, ederrena, egi biribilla, idazkia bera da, ta gaur, iñork nai ez ba'dau izenpetu, geuk izenpetzen dogu ososorik.

PIPER-ZIRI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Lengo euskaltzaleak

Idazleen artean sarri izaten dira eztabaidak. Baiña, eztabaidok asmo onez be izan leitekez ta orduan kalte baiño on geiago ekarten dabe, argi egiten dabe-ta.

Orain Zabala Arana zanaz asita iru-lau idazlan argitaratu doguz Urrutia'tar Gotzon'ek, Garatea'k, Amale'k be baitzez uste dot eta nik idatzita. Danok idazlan bat eginda autua amaituko zalakoan nengoan, baiña Garatea'k barriro ekin dautso, nik orretarako aukerako bidea emonda, kontixu. Ta berak egin dabena neuk be egin bear. Baiña nire au neure azkena izatea nai neuke.

Nire lengo esanak zutiñik gelditu dira. Zabala Arana'ren gramatikea Garatea'k ez ebala ezagutuko esaten neban ta umetatik ondo ezagutzen ebala erakutsi dau. Ondo dago. Baiña Zabala Arana'k gramatika bat soillik idatzi ba'dau, gramatika orren aurka iñok ezin esan daiteke ezer, iñungo akatsik ez dabelako. Bere beste lan balzutan euskera ulertu zailla ebala neuk be esaten neban. Baiña Garatea aldi aretakoa izan ba'litz aren idazlanak ulertuko zituan, orain AGUR'en argitaratu dituan atalak bai beintzat. Baiña oraingo Garatea euskaltzalea da ta euskeraz irakurten dau. Bere aitak ezetz esango neuke, euskerak ez ebala asko kezkatuten; beintzat ori esan daiteke orduko euskal aldizkarietan argitaratuten ziran errietako barriak ulertu gatxak zirala esaten daben edozeiñegatik.

Baiña gaur idaztera bultzau eragin daustana, berak Garatea'k diñoan ondorengo au izan da: «Euskera politika baten laguntzaille izan zan».

Itz orreik edo antzekoak sarri entzun eta irakurri izan doguz azken urteotan: «abertzaleak politikagaz nastau ebela euskerea, euren politikeari indarra emoteko erabilli ebela ta abar». Au ez da egia, ezta urrik emon be!Arana Goiri jaio baiño len Euskal-Erria erri euskaldun lez ilten yoan: bere buru jaube izatea galduta, euskera alderdi askotan ilda ta beste ainbat alderditan ilteko, endaz izan daben berezitasun arrigarria dana nastauten kanpotik etorren jende ujoldeaz, bere oitura ta ainbat berezitasun ondatuta edo azkanetan, itz baten, Europa'ko alderdi onetan etniko modura nortasunik nabarmenena izan daben erria, erri lez ilten. Ta Abando'ko semeak Euskal Erria ondamenditik salbau edo gaizkatu naian euskal alderdi politikua sortu eban. Ta emen dator nire itauna: Euskal Erria'ren nortasunaren atal nagusienetarikoa euskera izanda, txarto egin eban partidu arek gure izkuntzaren alde jokatutea? Orduan Euskal Erria'n politika partidu naikoa ba-ziran ta abandotarrak sortutakoa izan ezik iñor ez zan arduratzen ezer Euskal Erria'ren nortasuna zaintzen; euskeraren kezka txikienik be ez eben; euskeraren alde ezer ez eben egiten. Madrid'era begira jarduten eben partido areik euskerea politikan nastau ebenik iñok ez dau esango, euskerarik zanik be ez ba'ekien lez bizi ziran-da. Ta, areiña al zan jokabide zuzena? Euskaldun alderdiak be beste partiduak lez euskereari bizkarra emon bear al eutsan? Euskera aldez ez al eban lanik egin bear?

Emen ez da iñor dana ondo egiten dabenik ta euskal partidu arek be zerbait oker egin eikean. Ta Zabala Arana ta lagunen euskeratzazko jokabidea zuzena ez ba'zan be, geure izkuntza onenganako *maitasunak* eraginda lana ugari egin ebena ukatu eziña da. Gaiñera, Zabala Arana'ren aurka jagi zan Altube be, politikan, Arana Goiri'ren jarraitzaillea zan ta euskera arazoan Altube'ren eretxiak ebezan beste asko be bai.

Beraz, gaurko euskaltzaleak euskeraren izenean lengo abertzaletasunaren aurka ibiltea bidebakokeri andiena da. Gaurko euskaltzale gazteak ez beie aztu au: Euren gurasoak euskaltzaleak izan ba'dira aranatarrak izan diralako da. Ta aranatarra izan ez ba'da (itz argiagoaz ez esatearren) euskaltzalea be ez da izan. Beraz azkenengo onen aurka egin daiela, baiña ez euren euskaltzaletasunaren oiñarria izan diranen aurka.

Egiari amor emoten ikasi daigun. Autortzen dot nik langilleen alde geien sozialismuak egin dabela. Olantxe, euskera alde lengo denporetan abertzaleak soillik jardun ebela, gazteak be autortu daiela.

Garatea'k niri ta besteeri bere kezkak agertuko ei dauskuz. Ez dakit berak nundik joko daben. Euskaltzalea, eskolatua ta gaztea danez euskera soloan lan asko egingo dabela esango neuke, gora elduko dala. Baiña lengo euskaltzale talde bat erri aren aurrean txarto ipinten alegindutea euskerearen onerako lana danik ez dot uste. Areik lengo euskaltzaleak joan ziran; orain geu gagoz emen ta euskeraen bizitza indartuko dautsan bidea billatu ta jo ta kei egin bear dogu, batez be zuek gazteok.

Euskaltzaleon artean len be asarre ta nasterik ba-da ta eztabaida bide barririk ez daigun sortu.

KAMIÑAZPI

«Ikonoklastak» Modan Ete?

Beste moduko paperetan legez, baita gure AGUR asterokoan be, len lurperatuak izaniko gizon trebe ta ospetsuak ikusi doguz. Esate baterako, Pio Aita dala... —oraindik santutu barik dago— edo euskerea politikatzat artutakoan, idazlari batzuk agertzen dira «Orixe», Arana-Goiri edo Zabala-Arana aitaren aurka. Noruntz begiratu bear dogu onelakorik ez ikusteko?

Gure portuetako txo ta mutikoentzat kaltegarria izaten da baretasuna... orregatik itxas-zabalera urteten dira ta bertan olatu ganezka, oiuka ta poz-pozik, danon aurrean agertzen dira, errespeto gabe, buruak sartun ta atara. Txistua an eta emen botetan dabe atxakitzat, gizontasun-arrazoia ezpada.

Bein Pablo Zamarripa, Jaun on ta idazle batez be biargiña zanak, topa ginduzan —urteak dira— Bermeo'tik Mundaka'ra bidean. Gaztetxuak giñan bai, eta gure eskuetan idazti bi erabilguzan; bat Josetxo, Etxeita mundakarraren nobelea; bestea, Josutxu, Zabal-Arana aitaren eleiz-liburu txiki ta polita. Pentsau zun D. Pablo'k —eztakit zergaitik— ez genduela iru lagunok «Josetxo» lez «Josutxu» ulertuko-edo. Gure eskuetatik artu euskun «Josutxu» eta onen orri bat agertuz, irakurteko ta erderatuteko esan euskun.

Asi giñan bategaz, bigarrenagaz, irugarrenagaz, ta parra-parra irurok, erratu barik, leidu ta erderatu egin genduzan, iru orrijok. Arrituta, D. Pablo, ba-ekijalako erderdunak baita euskeldun barrijak giñiala. Iñauskun: «Zergaitik, mutillak euskerea ikasten zabiltzaze?»... «Gurea dogulako». *Barretxuaz D. Pablo'k iñauskun: «Ez, mutillak... euskerea oso ederra dogulako...»* «Ez jauna» *iñautsagun,* «ederra bai, baiña gure-gurea dogulako, bestela, ortarako obetoagao 'griegoa' ondo ikasi». *Ez eban D. Pablo'k auxe besterik erantzun: «Jarraitu mutillak olan... eta zuen artean, ondo edo txarto, ikasi arte beiñipein, euskeraz ekin. Ederto! Agur mutillak!»*

Benetan, gurea, etzan «kultur» erantzuna izango; biotzekoa ta politikaduna baiño. Eta, nok esan egiazkoa etzala? Barruko berorik barik, nora joan leikegu?

Geroago leidu genduan Arana'ren «En defensa del Padre Nuestro» eta errezetan genduan «Gure Aita Goikoa», Aita Gurea'ren ordez, baita «Agur, Miren eskarrez betea, Jauna zurekin; donetsija zeu emakumien artian; eta donetsija zeure sabelak sortuba, Josu...» ta abar —Nai ba'dozue; Zerurako Bidean—. Orduan ixillian egiten ba'genduan, geur erri osoaz «Gure Aita Goikoa» diñogu.

Batzuentzat, besteak erabiltzen dabena, politikea dan dana da, baiña ez, esate baterako, «Pello», «Praisku» edo «Lelantoni» euskel ixen lez ipintea gure umetxoeri... Olan edo alan euskera batua erabiltzea politikea da. Erriaren gustoz eta onerako politikea, guzona dogu. Sakondu daigun gerkatarren itz onen esannaya, politikea izango dogu erriak artuniko bere onerako bidea. Ba-ekijan bai, Azkue ospetsuak zetan ebillan Arana, bai morfolojijan goratu ebanian... Euren eretzijak alkar izan ez arren, beti.—Mundaka'k

ERMENDURU'TAR M'EK

GAZTE IDAZLE BARRIAK

LAGUNARI.—*Nere lagun biotzeko. Nik solfeoa ikasten dot eta nere eretxiz solfeoa ikastea ondo dago, orretara instrumento asko ikasi leitekez-ta.*

Orregaitik txistua edo pillarmonikea eta beste gauza asko jo leitekez. Polita da, ez diñot neuk joten dodalako.

Ni Gotzon Madariaga'gaz nabil txistua ikasten, oindiño txistu asko ez dakit, baiña andia nazanean eta asko dakitanean, beste batzuri irakatsi gura dautset eta urrun joan txistua artu ta joten.

Eta geiago ezer barik, ba-noa.

Arrizabalaga'tar Eujenio (10 urte)

JAKITEA ZER DA?—*Jakitea da gauza bat bear dana bizitzan, eta asmakizunak egiten dabez dakienak, eta ni be ikastolara noa ikasteko eta jakiteko, olan andia nazanean jakingo dot asko, eta andereiño izango naz.*

Iturregi'tar Goizaldi (Nire urteak 7)

ZELANGOAK GARA?—*Mutil onak aitak eta amak diñoena egiten dabe, mutil lagunekaz ez dabe erritarik egiten. Domeka eta jaietan Mezea antzuten dabe, ikastolara be pozik juaten dira. Mutil okerrak aita amak diñoena eztabe egiten, jolasetan bere oker jokatzen dabe, eleizara ez dira juaten.*

Nieto'tar Gaizka (7 urte)



UME TXARRA.—*Ez doa Mezara, aitaren da amaren esanak ez dagona egiten lapurretan egiten dagona.*

Ume ona.—*Meza osoa entzuten dabena, aitaren da amaren esanak egiten dabena, ta lapurretan ez dabena egiten.*

Goitia'tar Josu (Nire urteak 7)

MUTIL ONAK.—*Mezara joan, gurasoan esanak egin, gauzak emon, lagun ona izen, erreza, andereiñoaren esanak egin, Jaungoikoan laguna izan, pekaturik ez egin.*

Mutil txarrak.—*Jaungoikoari burle, Mezara ez joan, lagunak jo ta txakurrari ostikadak emon, gurasoari burla, andereiñoaren esana ez egin.*

Gangoiti'tar Unai (Nire urteak 8)

IKASTOLEA.—*Mungin daukagu ikastola bat izena Larramendi daukana. Bertan bost andereiño daukaguz oso onak.*

Lenengo andereiñoak Ana Mari izena euki eban eta oingoa Jaione da. Berak ondo irakasten dausku.


Bertan irakasten dausku gure Euskal-erriko izkuntza ederra ainbeste maite doguna.

Mallona'tar Agurtzane (7 urte daukadaz)

BERMIO'TIK ARRAINTZAN

Arraintzaleen bizitzea zailla dala danok dakigu, itxaso aserrearen aurka jokatu bear izaten dabelako sarritan, ta azkenean, euren alegiñak ezereztuta itxiten ditualako sarriegi. Auxe berau jazo zan Orrillaren 26'gnean be, AGUR'en idazle dan Landaluze'tar Joseba ta biok, arrainketan joan bear gendula gogoratu ondoren, Renteria'tar Joseba Andoni'k, txalupako bere lagunegaz batera, itxaso bidean jarri genduezanean.

Txalupako patroi ta beste lagun batzukaz batera, itxasoratu aurretik, txikito batzuk artzen jardun genduan. Ondoren, Joseba Andoni'ren etxean bazkaldu genduan eta iruretan itxasoratu. Bitartean, nire lagun Joseba'k eta biok auxe erabilli genduan agotan: Arraintzaleen izakerea legorrekoengandik oso ezbardiña dala. Gai au geure artean aztertu ondoren, onetzaz, arraintzale batek beste au esan euskun: «Gu, toki askotan, bear ba'da, txartzat eunkigo gaituezak; bermiotarren eta itxastarren izakerea olangotxea dok, esan bear dana ta sentitzen dana argi esan, sarritan, batzuntzako mingorra izan arren. Baiña, bermiotarrak eta itxastarrak, edozeiñeri mesede egiteko gertu eukiko dozuez...» «Nire ustez», iñarduan berak, «itxasoko bakartadeak eta itxas aserrearen aurka jokatu bearrak, legorrean bere era orretara jokatu eragiten jauskuk».



Bai, arraintzalean artean dan alkartasuna ikusi al izateko, ez dago Bermio'ko txalupa batera igotzea besterik baiño.

Arraintzan asteko tokira arte sei orduko bidea genduan ezkero, arraintzale geienak ogeratu egin ziran, goian geratu giñanok: patroie, engrasadorea, beste mutil gaztetxo bat eta «arraintzale» barri biok. Txalupako mutil gazteena zan orregaz, alkar-izketa labur bat izan neban:

—Zenbat urte daukazuz?

—Amabost urte beteta.

—Noiz asi ziñan itxasoan?

—Orain iru illabete besterik ez.

—Zer ikasten izan dozu itxasoratu aurretik?

—Lau urteko batxillerra ikasten nenbillen; orain itxi egin dot.


—Zergaitik itxi dozuz ikasketak?

—Txalupa onetan lanean asiteko aukerea izan nebalako, ta Bermio'n onenetarikoa dan ezkero, ez neban bertan bera itxi gura izan. Nire irakasleak, batxillerra amaitu arte jarraitzeko esaten daust, nik ez dot baiña itxasora libururik ekarten.

—Baiña, emen ba-dozu ikasteko naiko denbora, ez da?

—Bai, baiña... beste alde batetik, bermiotarren elburua itxasoa da, ez daukagu, beste toki askotan lez, idustririk, orretxegaitik itxasoratu bear izaten dogu. Nire elburua, txalupako patroi izatea da, ta orretarako itxasoan ibilli bear.

Gabea eldu ondoren, patroiagaz nengoan, an ebillen bere irrati bidez bere lagunekaz izketan, antxoak nun aurkituko ebezan begira. Azkenez, bere ta gure gogoa ezerezean geratu zan, xarerik be bota barik etxeratu gintzazan.



Gu, ala ta be, pozik gauza oneik ezagutu ta lagun barriakaz, ta barriro joateko gertu gagoz, ta oraingoan, argazkiña «flax» ta guzti eroango dogu, ta bitartean argazkiak ateraten be ikasiko dogula uste dot, ba, lenengook, emen agertzen doguzanok baiño ez dabe urten-ta.

Goizeko seirak inguru izango ziran Bermio'ra eldu gintzazanean, ta, an, txalupa batek be ez eukan antxoarik. Bateron batzuk txitxarroak ekarrezan, eta gugaz joan zan arraintzale ta bertsolari trebea danari galdetu neutson ea zergaitik ez eben txitxarrorik arrapatu. Ta erantzun eustan: lauerleko bi baiño ez jauskuezak ordaintzen, ta orretarako obea dok dagozan lekuan itxi».

Astelenean, Bilbo'ra eldu nintzan, ta arraindegi baten galdetu be bai: «Zenbat balio dabe txitxarroak? Eta erantzun eusten: «Treinta y cinco pesetas el kilo, majo». Ederra kontua, itxasoan lanean diarduanari lauerleko bi ordaindu, ta saltzailleak 35 lauerleko artu! Barriro be entzun bearko dogu urietako maietan, «merkeagoak ba'litzaz ekarriko neukez».

Etxeratu aurretik, Joseba Andoni'ren etxean gozaria artzen gengozala, guregaz zan bertsolaria bere, ta esan eustan, Iturri bertsolariagaz lagun andia zala, ta orri laguntzeko zergaitik ez gendun Mungi'n omenaldi bat egiten.

Ta emendik, esan bear dautsut, ori be egingo dogula mungitarrok, baiña negura arte itxaron bearko dogu, udaldia aldi txarra dan ezkero.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

KONTU KONTARI

Uri txiki baten, neskatilla aberats bat bizi zan, alaba bakarra, askok emaztegaitzat begiz jota eukona. Aita ta ama bizi izan jakozan artean, iñor ez zan ausartu etxe artako atean ots-egiten. Umezurztu zanean barriz, batean atso bat, bestean gazteagoren bat, euren seme naiz lobea etxe artan nondik sartuko ebiltzan.

Neskatillea bera, ezkondu gurarik ebillan, ezekian ordea senartzat zein artu; ta goizean eleizara joan ta Andra Maria'ren aurrean luzaro egon oi zan.

Sakristaua, atzo goizekoa izan ez arren, ezkongea zan ta ordurarte, ez bere buruz ez besteren bitartez, aberats orri bere gogoa ez eutsan azaldu. Eleizara ain sarri joaten ikusirik, poz-pozik burutasun ausartu bat artu eban. Andra Mari irudiaren ostean burua gordeta goiz askotan egon zan. Bein, goizetitxo elizaratuta, ezkongai aberats orrek, itz oneixek zuzendu eutsozan Andra Maria'ri:

—Ama, Ama maitea: Senargai on bat gura neuke, zeure gogoko bat.

—Ortarako, eliz-zaia, sakristaua dozu, alabatxo, beste edozein baiño egokiagoa —erantzun eutsan txadon— zaiak abotsa disimulatuz.

Andra Maria'ren gogoa zer zan bakiala-ta pozik joan zan neskatillea etxera. Egun artako illuntzean emakume eldu batek sakristauaren etxean, ots —egin eban, aberatsaren izenean.

—Austin, ezkonduko zintzakez umezurtz aberatsagaz?

—Ni bai, ba-dakizu gero: nik goian zerua ta bean sakristia ta solotxo bat baiño ez daukadaz; txiro-txiroa, ezeuki arlote bat nozu ni.

—Ez ardurarik izan, Austin; zeruko argitasuna izan dau. Zeugaz izan ezik, beste iñogaz etxatzu a ezkonduko.

—Alan ba'da, zeruak gura dabena, lurrean gerta bedi, erantzun eutson Austin'ek.

Illabete ta erdi baiño len, senar-emazte ziran.

ABELETXE

ALKAR-IZKETAN

—Gaur Manu, «aizetan» dabillen gai bat erabilli bear yoguk gure yardun-aldi onetan.

—Euk esangok Peru, oingoan aurrea artu daustek eta.

—Uste yoat euk be yakingo dokala, izparringi ta irratiak aurrez esan yabek-eta, Estokolmo'n batu dozakala 114 laterrietatik yoanda 1.200 ordelari, ONU'koak, gaur eguneko aurrerapenakaz gizonak arnasarako bear yokan aizea, zikindu, kutsutu ta kaltegarri izatea zelan galerazo leiken aztertzeko.

—Olango batzar baten bearrizana be egon dok. Ainbeste landolak bialtzen yabezan lurrun kaltegarriak, keak eta ondoren usain txarrekoak, etxeetatik urteten yaben ainbeste ur loi eta zikinkeriak, eguratza ta aizea bakarrik ez, errekak be atsitu yabezak, begientzat eta surrentzat be iguingarri biurtuaz. Orrez gaiñera millaka ta millaka belbillek zabalan yaben kiratsa, gizonai osasuna galdu eragiteko naiko dok.

—Ori bakarrik ez, toki batzuetan ortuariei be lurrun txarrak kalte asko egiten yautseek.

—Kontu ataraik zenbat estarri, birietako eta ostantzeko gexo ugarituko doazan. Ori dala-ta, yayegun artu orduko or ikusikok urietako yentea, aize garbia artu gurarik mendietara igeska.

—Lotsagarri dok izan be, aurrerapidearen izenean, gizonaren osasunarentzat kaltegarri dozakan bideak ugaritzea.

—Ondiño ori baiño geyago. Erri anditxoetara ibillaldi bat egiten ba'dok, or ikusiko dozak, len ur garden, garbi ta begientzat ain atsegingarri zoazan gure errekak, zikindu, atsitu ta iguingarri.

—Alantxe dok izan be. Ni sarritan oldozten egoten nok: Gure asabak, al ebenean, erriak erreka ondoan egiten yoezan, etxeko ta soiñekoen garbi-ikuzirako, abereentzako, buzti-aldi bat artu bear zanerako ta abar. Gaur barriz ez soiñekorik garbitu, ez abereak edan, ez mutikoak ugerrik egin olango erreketan.

Ori olan dokala, beste gauza kaltegarriago bat ezagutzen yoat.

—Ori baiño kaltegarriago?

—Bai, gizonaren gorputzarentzat baiño be, arimarentzat kaltegarriago dokan giro txarra. Zine-mintzak dirala, aldizkari, iragarkietan lotsabakokeria zabalduez gure erriko alde guztietara eltzen dok gaztediari batez be kalte asko egiñaz.

—Ondiño kaltegarriagotzat yaukataz, gazteen sakelak uztu, buruak nastu ta biotzak ustelduteko aukerakoak diran «sala de fiestas» izenagaz erri txikietan be zabaldu yabezan toki asko. Eta ori urritu ta galerazo leikenak ixilik egotea, zelan izan leikek?

—Gizarte barruan bizi gareanok, guztiok yaukoguk eskubide ta eginbearra, gizona aberetuten yaben oitura zantar ta zikinkerien aurka al yoagun guztia egiteko, Aita Santuak esan yokan lez, lurreko lenengo aberastasun eta andiena gizona dok eta, eta kutsutuerik txarrena gizonaren miseri zoritxar eta zuzentasunik eza.

—Gizona zorioneko izango ba'dok, ez dok naikoa izan be, gorputzagaz bakarrik arduratzea, bere arimako osasunari be begiratu bear yakok ,bere duintasunaren zusterra ortxe yagok eta. Ori alde batera itxi ezkero, ustelkerizko lupetz artean gizonak eta erriak itota ondatu dozak.

—Ba ikusten dana ikusita, gure erria be bide orretan sartuez dokala yirudik.

—Yaunak ez al yok lagako gugaz olangorik gertatzerik.

—Orixe diñoat neuk be. Agur!...

URIGOITIA

BA-DIRA BAI MAITALEAK

Euskal-erriak, eta beronen sena daroan Euskereak beti izan ditu maitale zintzoak, ta sarritan gitxien agiri ta askok, euron maitasuna ezpanetatik barrurakoa ez dala, beste benetako orrena ukatzen zaratatsu ibilli arren, euskeraren alde lan gogorra egiten dakienak.

Ta onetariko bat, ta ez makalena, gure zuzendaria dan Retana'ko Martin'tar Jose Mari dogu, ta beste bat, Kastresana'tar Koldo idazle azkarra. Biak, itxuraz, gazteleraren morroi, baiña egitez, apal, ixillik, euskal gauzen maitale zintzo ta beroak.


Onetariko bati, gure zuzendariari atan be, Bagil onen 13-gnean omenaldi bat eskeindu dautse Bilbo'ko idazle taldeak, eta bazkarian bertan, besteak Kastresana'k itz ederretan Retana'ren lan ugaria goraldu eban, euskera eta euskal-izatearen alde dagian lan ederra goraltzen.

Bide batez, Euskal-Errian dogun idazti ekintzarako giro txarra salatu eban; ta orrenbeste danok dakigu, ba, ez erdal izkuntzetan idatziak bakarrik, euskeraz agertzen diranak be, ez dabe ezelako arrera onik izaten, eta biotz-jokeraz idazle danak, negar-gurea emoteko aiña irain eta utsune aurkitzen ditu gure ba'leukee berba-lapiko bakarrik diranen artean.

Baiña, egia esan bear, emen idazten dogunok be ez gara beti ta bear litzaken neurrian kezkatzen edo danera eldu eziñean danetik be ez jakiten, ta gero ausarti berba egiten bai kementsu. Naparroa'tik «La Voz de la Ribera» izparringitik, Bagil onen 10'gnekoan datozan lan bi irakurri arte, ez gara konturatu, ez gure artean bakarrik, baita an urrin be, orrelako gizonak lan ta lan diarduela euskerea nundik goraldu ko ta laguntasunen billa.

Lanetatik bata, Urtarrilleko 8'gnean «Blanco y Negro» aldizkarian Kastresana jaunak idatzia da, ta beste lana idazten dabenak, napar izparringi orretan barriz argitaldu, ta bere aldetik txalotu ondoren, biok biotzean darabillen kezkea agertzen dau. Biok ba, euskerea dabe maitagarri ta alegiñetan jardun bere alde ta bere oberako. Ta ona emen batak eta besteak diñoena, naita zati labur batzuk besterik izan ez.

Kastresana'k: **«Nik be euskerea ikasten diardut, benetan da ederra ta eraginkorra... Iñoiz idatzi izan dot, euskerea dala edergaillurik antziñakoena, ta Aijito'ko «piramideak» eurak baiño ar**



«drakurleen» artean. Bai, ardura geiago ta saletasun aundiagoa lortzen dabe, Kastresana'k esan eban lez, Bankoetako letrak, irarkoletakoak baiño: Dirua dogu jainko, euskerea ta euskal-jakintza jostaillu. Euskal-errian idazle izatera eldu gura dabenak, jakin bei zer jasoko daben: barre-txikiak, goitik bera begiratzeak, bizkarreko eskutakada paternalak, ta «etxaukat astirik irakurteko...»

Ala ta be, gaur aipatuten doguzan gizon biok, nekeak neke, iraiñak irain, ta euren borondate ona igarri al izan daben gitxi batzuen txalo bigunak lagun, lan izugarria egiten ari dira ta aurrera jarduteko gertu doguz.

Beste au be esan euskun: «idaztiak ainbat eta onurakorragoak izango dira, irakurleak geituten ditun neurrian». Ta guk beste au ezarten dautsagu: «Erri bat ainbat eta onurakorragoa izango da bere idaztiak zabaldu ta onartzen dituan neurria aunditzen ba'doa». Ta La Gran Enciclopedia Vasca'k orrenbeste erakusteko aukerea emon dausku; onek argitaratu dituan idaztietatik edozein, bat bakarra da naikoa erriaren jokabidea neurtzeko: Azkue'ren iztegi zoragarria, amar jakintsuk, beste edozein izkuntzatan egin izan ez dabena, gurean euskaldun batek egiña, ta erriaren biotzean sartzeko egiña gaiñera; «Peru Abarka», illuntzietan, euskal-sendietan irakurri bear litzaken euskaldunen irakurgai mamintsua; zatika, aztertuz; euskerea bera zelan erabilli bear dan ikasteko; zelan, euskal gaiztoz ez dan erabilli bear igartzeko.

Ta idazle izan guran dabiltzan gazteak, or daukez, gizon bi oneitan benetako lagunak, ta zein eder izango litzaken orrenbestekorik idoro al izango duragarriagoa eta garrantzi aundiagokoa dala ludiko edestian». Ta, Jainkoari eskerrak emoten dautsoz, gaur ludi guztian, indartsu agertzen dalako euskerarenganako zaletasuna ta ikasnaia.

Montoro'tar Jose Joakin'ek: **Beste idazle orrek, Kastresana'ren lana aipatzean, «Eskerrikasko jauna» izen buruagaz asten da. Onek euskerearen alde idatzi daben ori, arek berezat onartu ta txoletzen dabelako. Bera be ez da atzean geratzen gure izkuntza maitea goraltzen, eta beraren oberako dei entzungarria egiterakoan. Ta idaz lan orretan, edestiari jarraitzen aurkitu dituan eta berezustez aipagarrien diran lorarik politenak eskeintzen dautsaz euskereari.**

Ta, asieran aipatu ditugun gizon bioneik, eta irugarren Tudela'n, TUTRA'n, berak diñoan lez, bizi dan orrek, benetan maite dabe gure euskera zoragarria, ta iruroi guk, jaiotzatik euskaldun garanok, or agertu dituen itz orreikin agurtuko ditugu: «Eskerrik asko, jaunak!»

Zuen antzeko maitaille langilleak bear ditu gure erri eta izkuntza zarrak, nekatuta edo etsita aurkitzen diran ainbeste ta ainbeste, esnatu ta indarbartu dadizan, eta len izan eban eta iñoiz galduko ez dan maillara jaso, danon artean, euskal nortasun ezinbestekoa! Danok, egunean ordu batekin, illean idazti batekin, eta benetan aleginduaz, lortuko dogu. Ekin eta ekin, gure bizitza gure izate gure arduren lenengo eginbearra orixe da-ta.

UBITZA



GURE KIROLAK

Atxo, Sanjuanak, batelak Tolosa'n, Gaur, Donosti'n asi da traineru txiki edo «trainerilla» deritxoen arteko txapelketea. Ba-dakizue, igaz, azken orduan bizpairu lagun kendu eutsezalako, ta uda guztian aurretik joan zan arren, Getari'k ezin izan eban txapelketa a irabazi. Ala ta be, igazko arraunketetan, geienen uste-ezean, goigoian azaldu ziran eta orretan muturra sartuta dagozenean artean arritualdia sortu be. Galdetu bestela orretzaz ain jator idatzi eban getariar Donosti'n biztanle dan E. Ozkin'i.

Ba, igazkoa ez zala beroana bakarrik izan erakusteko, ara gaurko lenengo lasterketa onetan barriz Getari garaille. Lenen danen aurretik eta bigarrenari, San Juan'i 18 segundu atera dautsaz. Ea aurten, azkenerarte orrela jarraitzen dozuen, zarauztarrak eta zumayarrak ao zabalik geratu daitean. Orreik be al dabe ta, ekin dagiela gure kirol polit oni indar barria emoten. Aupa Getari!

* * *

Pelotea bestea. Oso nastatuta ikusten dogu, ta ordua dala uste nik, erriak ortan bere ardurea jartzen. Gure zaarrak diñoskuenez, oraindik 50 urte ez dirala, uri bakoitzean iru edo lau frontoi ba'ziran be, ez ziran naiko izaten, eta ibiltoki ta kale bazterretan zan edozein orma zabalaren aurrean, jo ta ke jarduten ei-eban, txinela agertu arte, ta oni zirkin egin eta barriz asi ta apurtu, bai apurtu inguruan ziran leiar eta eskaparateak, baiña ezin utzi, a zan odoletik etorran pelota jokatu bearra, baiña, irakurgaiak eta ikusigaiak bestera alegintzen ba'dira, erria, iñoiz artalde, orreri jarraitzen ikusiko dozu, ta gauza barriak, naiz emekoiak izan onartu: bai ba-da aldea balon cesto txingorgaintsutik giza-indarrezko pelotara, baiña onen alde dana.

* * *

Gaur bertan, Bilbo'ko Atletik'ak, Donosti'ko Real'ari irabazi dautso, ta au etxera bialdu urrengo urtera arte. Egia esan, ez dot aspaldi ostikoketarik ikusi, neuk jokatzeari utzi neutsanetik bizpairu besterik ez. Baiña, beste zerbaitek kezkatzen nau. Ostikoketea kirol ederra da, gorputzarentzat osasungarria, norberak egitekotan. Baiña gaur, geienentzat ikusgarri bat besterik ez. Bai, besterik be ba-da: Etxean, emazte ta seme-alaben aurrean, gizon agertu bear; lantokian, zur eta oso; jente artean, on eta irribarrez. An, ostikoketa zelaiaren inguruan, albokoari ukulondoka, aurrekoa zapaltzen eta atzekoaren bultzadak onartzen, orruaz, moltzoan mozkortuta lez, itxura bako gauzak esaten, lanean ari diran gizonak iraintzen, abere utsutsera biurtuta.

Ta ori, ta beste au, zoritxarrez bilbotarrok azken joko-aldira eltzea ba'dira, millaka ta millaka ogerleko joango dira erbestera, ta etxean bear lirakenak be erre. Ta alkarren leian, abere, abere ta abere.

Kirolak bear doguz, bai, baiña bakoitzak bere giarrak azkatzeko, ta orretarako, emengoak onenak, ta ez geureak diralako bakarrik, baita orregaitik be baiña.

IZAR

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

EUSKO ESAKUNAK

Puxka zaarrak oso aintzakotzat guk artzen. Gerok, Euskalerrian zaiñak asko errotu izan ditugula ba-dakigu. Eta, antziñakoek ementxe beren aztarnak utzi. Lur-azpian. Aitzzuloetan. Izkerean bertan.

Aspaldiko ezurrak galtzen ez utzi nai. Zillarrez erosi ezin ditezken altxor dira, izan ere arzuloetako arkikuntzak.

Bitartean izkunzak berak bere ezkutuak izan. Era askotako ikasgaiak, alegia. Zer zaar oriek utzi zituztenek, lankaiak eta atuxak baiño askoz leenagokoa zuten beren izkuntza.

Oraingo Euskalerrian, beti euskallur izandako bazter auetan, atsotitzak erruz dira. Esan bearrik ez legoke, esakun zaar-zarrak, ia geienak beintzat, gureganaiño ez dirala iritxi. Erriaren iakintza zabala danez, erriari ialki zazkion esakunak ere neurri gabe ditugu ia. Guztion onerako tolosar Mokoroa'tar Justo Mari apaiz agurgarriak izugarrizko esaera zear mordoa du bilduta.

Eguraldiari dagozkion esaerak oso iakiñak ditugu: 1) «Goiz gorri, arrats euri». 2) «Arrats gorri, goiz aize». Bi auen ondoan orain ia ulertzen ez ditugunak ere ba-ditugu.

Ain zaar ez diran esakunen artean onako bi auek sartuko nituzke: 1) «Egoarri, eroak igarri egunaren luzeari». 2) «Santa Luzitan oilloaren arra bat luzatzen da eguna». Nik esakun bi oriek Andoain'en entzunak ditut. Eta biak, ume nintzan garaian bertan ain siñistagarri ez. Ain zuzen auxe esaten ziguten: lotazillaren ogeitabatgarrena arte eguna moztu egiten zala. Eguarri eguna ain laister izaten dalarik, eguna ez zitekean eroak igarri zezaioken aiñean luzatu.

Siñistegoki ez nituan esakun bi oiei nondikakoa atera naian urteak eman ditut. Esakun bien guna uler al izateko edestian barna, atzera egitea on izango nuela iduritu zitzaidon. Atzera biurtu ez, asko ere!

Gregorio Amairugarren Aitasantuak agiria atera zuan: 1582'garren urteko epaillean. Eta urte artan Urrillaren laugarren ondorengo eguna, il beraren amaboskarreno izan zan. Erabaki ontatik ikasi dezakegunez, gure esakun bi oriek aldaketa egin aurretikook dira. Santa Lutzi eguna, ez orain bezela Lotazillaren amairugarrenean, baizik lotazillaren ogeitairugarrenean izango zan. Beraz, eguna oilloaren arra ainbat luzatzeko egoki. Ondoren, Eguarri eguna oraingo gure ilbeltzaren aurrenean zitekean: egunaren luzeari eroak ere antzeman al izateko poliki. Eguna oilloaren arra ainbat luzatzen dala esan-da, eguna orduantxe luzatzen asten dala esan nai, arean. Eguarritan, berriz, egunaren luzeari, batez ere, arako egoaizeegunetan antz-ematen zaio ederki, illunabar atsegingari epeletan!

Gure egun auetan Doibatzak bere egutegian egin dituan aldaketak ikusiz, bat baiño geiago geron onetik atera izan gera. Baiñan, auxe izan bear guk gogoan: len ere aldaketak egiten zituztela: ezik, ez ez izan garai artakoak eta aldaketa aiek guri miñik ez ematen.

* * *

Beste au ere entzun izana gogoan det: «Aulkitik aulkira negu». Garaia eldutakoan esakuna apaiz-gizonen artean beintzat maiz berritzen zan. Ilbeltzaren emezortzitik, otsaillaren ogeitabigarrena arte, alegia. Ilbeltzaren emezortzi ortan Kepa Deunak Erroma'n bere irakastegia asi zuaneko oroitza ospatzen: bigarrengoan, Kepa Bidali berak Antiokia'n izan zuaneko irakastegia ospatzen.

Euskalerrian neguaren biotza orduantxe izaten zan: egun batzuk len eguraldi otzak izan arren ala egun batzuk geroago berorik agertu ez. Laterazko itza euskeraz *aulki* esaten gu baiño zaarragoak. Orain Kerexeta'ren «Eguneroko Meza» idaztian *Irakastegi* airkittu det.

Emendik aurrera, esakuna aaztu egingo da: bai apaiz-gizonen artean ere. Ilbeltzaren emezortzigarrenekoa otsaillera aldatu digute: otoitzak eta meza deuna egun batean bakarrik orain. Len *aulki* bi eta orain irakastegi bakarra.

* * *

Nekazaritzara eta artzaintzara ager gaitezen. Esakun au artzaiena da: «San Simon eta Juda, uda joan eta negun eldu da; artzai gaixoa galdu da». Iruretagoiena'tar Yon apaiz zarauztarrak onela bildu zigun: «San Simon eta Juda, uda juan ta negua eldu da: Izuela'ko artzaia galdu da». Gregorio Amairugarrenaren erabaki aurretik, bi Bidali deunen iaieguna orain baiño beranduago zitekean, eta goietan elurra izango zan, noski. Neroni Azilla'ren amaikagarrenean Kizkitza'n eta Astigarreta'n elurra ikusia naiz.

* * *

Nekazalgotik irten gabe, beste esakun au:

«San Gurji, artuak ereiteko goizegi: San Markos, artuak ereinda ba'legoz!»

Agian, esakun au ere aldaketaren batek eratua izango! Leenagoko garaietan zein egun aldatu zuten? San Gurji atzeratu? Ala San Markos aurreratu? Edo'ta leen ez zan iai-egunen bat asmatu? Askotan gogoratu izan zait, bertsolariren baten asmaketa dala... Gurji, *goizegi* itzez erkatu; Markos, *ba'legoz* itzaren otsez erkidetu.

Orain-orain bezela, San Gurji egunа artoak ereiteko goitztxo izaten da. Ala ere, alakoxe giro on-ona danean artoak ereiteko lurra ederki landu eta ondu al izatea gertatu liteke. Arruntean, ordea, euskal-nekazariok beranduago ibilli oi dira.

Au ere nekazariena: «Doneaneko euria garien galtzagarria». Esakun au erriaren ezpaiñetan, gutxitxo ibiltzen ote-dan ustea det. Egutegiari egin izan zazkioa ikuttuetan aldatu gabea!

* * *

Berriro elizgaietara goazela, ona beste esakuna. Au ere Andoain'goa: «Alleluia meza-luzagarriya». Beintzat lotazillaren zortzigarren egunekoa ala izan liteke. Belarriak pozik entzuten, baiñan egun auetarako luzetxoa. Beste bein aldaketak aipatzen ditudala, alleluiak asko bakandu dira. Ia iñork ez ditu abestu nai. Motx-motx irakurri eta aurrera!

Otsaillaren ogeitabigarrenean negua bukatzen zala esan det. Onako esakunak aitorpen orixe ber-bera egiten: «Done Bizen argia, guztientzat dakar ogia». Lengo bilduma zaarretako esakuna!

Onako au nondikakoa dan asmatzeak emango lanak:

«Done Meteri Zeledon, porru ereinaro on». Gure artean zaar-aztertzaille argiak ba-ditugu. Eta, esakunaren sortzen noiz izan eta zein alderditan gertatu zan diralakoa zaar-aztertzaille oriek argitu bear liguteke.

* * *

Ospakizunetatik eldu zaigun au ez bide da berealakoan aaztuko: Alegia, «Natibitate, ase ta bete». Eibar'en onela esaten zuten, agian: «Gabonetan, ase ta bete urte guztirako». Ni orain urruti bizi naiz. Eta, urruti ontaraiño iristen zazkidan berrietatik atera dezakedanez, oraindik ere urtero toki askotan beteketa izugarriak egiten dituzte. Bear ba'da, esakuna beste era batera aipatuko dute. Iakitea ez litzake txarra izango.

Ospakizunetan Eguarriak aiputan ditugunez gero, ona emen eibartarren au: «Gabon-gaua urtien luziena». Ez dakit ordea, oraiñago, batek baiño geiagok, gau luze ori beste egunen batera aldatu ez ote-duten, Erosle iaioberriaren oroitza beste noizbaiterako utzita.

ETXEBERRIA'TAR P. S. I.

TXIKIEN ZAINDARI?

Lenago iñoz egon izan naz gaurko gai au arturik idazteko, baiña, orain beintzat. idazlan batek neure au egitera bultzau nabela esan bear.

Ameriketarrak Vietnan'en gudan sartzeko eskubiderik ez dabela erakutsi naian, Italia barruko laterri txiki San Marino'k be Actlantico beste aldeko laterri andi orrek aiña eskubide ba-dabela diño.

Ez noa orain guda au dala-ta ezer idaztera; nire asmua itaun au egiñaz agertuko dot: Edozein laterri barruen gogorkeri ta anai arteko gudak diranean, ba-dabe kanpokoak eskubiderik alde batekoari edo bestekoari lagunduaz naste areitan sartzeko? Irakurleen erantzuna ao batez ezetzkoa izango da: Iñok ez dabela bestearen autuetan sartzeko eskubiderik. Zentzundun danak beste erantzunik ezin emon daikela dirudi.

Nik ostera ez dot uste erantzun ori soillik errezoizkoa danik. Kalean gizon bi auskan ikusten diranean, batez be alkarri min andiak emoteko edo egiteko itxuran ba'dabiz alkarrengandik banatzen alegintzen gara. Gu ez gara iñor besteen autu ta asarreetan sartzeko baiña alkarri gatxik egin ez daioen sartu egiten gara. Gaiñera asarre orretan zuzenbakokeriz batek besteari min dagiola ikusten badogu oraindik gogotsuago bertan sartzen gara azpiratua danari laguntzen edo min geiago artu ez daian. Ta gizonakaz egiten dan au ondo ba'dago txarto ete dago erriakaz beste ainbeste egitea?

Beste errien autuetan sartzeko eskubiderik iñok ez dabela? Nik beste era batera esango neuke: Orretarako gauza diranak edonungo asarre gogorkari ta zuzengabekeriari amaia emoten alegintzea beartuak dagoazala. Orain bertan Errusi'k eta Ipar-Ameriketa'k alkar artuta Sortalde Erdiko arazoan Israel, Ejipto ta abar bake zuzena egitera beartuak izango ba'lira txarto egiña izango al litzake?

Baiña zoritxarrez, askotan, laterri andiak bake ta zuzentasun naiak eraginda ez dira sartzen laterri txikiagoen asarre ta nasteetan, eurentzat obeto datorrenari indarra emon guraz baiño. Orregaitik ikusten da begi txarrez sarritan laterri andien txikiakazko jokabidea.

Ta orain idazle orrek esan dabela ta gorago idatzi dodanari zuzenean erantzun deiodan.

Aldi guztietan egon dira munduan edo munduko alderdietan eragiña izan daben laterriak. Aldi baten Españia be zerbait ba-zan, bere lurretan eguzkirik ez zala gordeten esaten dan denpora areitan edonun muturra sartzen eban. Prantzia munduko inperiorik andiena zala esaten zan azkenengo guda aurreko denporetan. Ingalaterra'k izen bategaz edo besteagaz, modu batera edo bestera, mundu erdia bere mendean euki izan dau orain gizaldi laurden bat arte.

Orain Errusi ta Ipar-Ameriketa'ren txanda da. Ta aurrerantzean be norbait nagusituko da laterrien artean. Beraz, berezkoa dan (bear ba'da bearrezkoa be bai) laterrien arteko gidaritza orren aurka ez gara asiko. Gaiñera laterri artean aurrenetarikoa izatea beti ez da gozoa, iñoiz zama aztuna be ba-da. Munduan gorabera andiak jokatzen diranean olako laterriak nai ta be besoak gurutzetuta ezin egon daitekez. Azkenengo munduko gudan Europa guztia alemandarren mendean jausi zanean fazismoaren etsai ziran guztien itxaropena Ipar-Ameriketa zan, eta lenengoan orretarako ez egoan gertuta, baiña gerora sartu egin bear izan eban.

Baiña beste alderdietako arazoak lagata Asia'ko Sortalde Ego'koari begiratu deiogun berbatxu bi b'adabe esateko. Vietnan'go arazoan ezertan sartzeko kanpoko iñok eskubiderik badauko Ipar-Ameriketa'rrak dira, Indotxina ta abar japondarren mendetik azkatzea oso-ososrik berari soillik zor jako-ta. San Marino'k be Ipar-Ameriketa'rrak beste eskubide dabela an eurak nai ez daben gobernu modurik ez onartzeko? Ez onartzeko izango dau baiña an muturra sartzeko ez.

ETXABURU'TAR J. M.

EZ DOGU NAI

Gogorkeriaren biderik ez dogu nai. Au ez da gure aukeramenetik datorren zerbait. Askoz sakonagoa da. Geure biziak aiña indar dauka, izate berberari ezarrita. Barru-barrutik urteten dausku ta ez dogu nai, iñork norbera goikeriz zapaltzerik. Gizona, sortzetik artu ditun almenen eraz, egalari ibilteko egiña da.

Lagun bakoitzak beregan daroaz adimena ta naimena ta onen bion ondorea da askatasun itz zoragarria. Ikasi, maitatu, egin, norberak norbere gisara dagiz, almen orrek emon dautsozan Jaubearen agindura. Egille onek be, iñoz, ez dau zapaldu nai, Berak sortu daben izakiari lotsa dautso. Ugezaba dalako, naiz jakintsuago, naiz indartsuago dala-ta, burdin kateiekaz gizona ez dau lotzen.

Guretariko bakoitzari emon dauskun gizontasuna, geuk edertu ta osotzea nai dau. Emen dago egizko aunditasuna, zabaltasuna ta argia. Ta gizonaren osotze au gizarteko arazoei dagokien eran erantzuten ikastea da. Ta gero, egiteen bidez, zuzenki, geure arteko buruko-miñak konpontzea. Era ontan jokatzeak, geure barruko eskabideari erantzun bear dautso, bizitzari berari on egiñaz.

Berezko bide au garbia ta ziurra izan arren, gizonak bere eskutik artu nai dau, Egilleak guri emon euskun nortasuna. Jaubeak azke itzi ginduzan, geure almenen eran lan egin gengian, ta jaubea ez dan gizonak, bere menpean artu nai leuke bere kidekoa. Onek dira gaurko laskikeri ta mitoak. Bizitza, seriaren izenean dala, naiz aurrerapidearen edo bestelan jakituri barrien txalokeriz dala, azke-azke sortua izan dana, norbere eretxietara eroan nai da.

Norbere naikeriak errasoi-bide gisara, aurrera eroan al izateko, lengo jokabideak ezer-eztzat, edota txartzat artzen dira. auxe bai dala mitokeri polita. Sugekerietan dabil gauzea etoi-etoiki. Baiña gogorkeriak, gizona, iñoz ez dau bildurtu. Kristiñautasuna munduan zabaldu zanean, odol gorri askoren berotasunak bultz eraginda izan zan. Kristo'ren etsaiak siñismena ezpataz il nai izan ebenean, odol beroz berbiztu eben Kristo'ren erria lurrean.

Gaur egunean be asmo edo asmokeririk aski dabil gure inguruan. Lengo bizitzan zapalkeriak asko izan direla, uka eziña da. Gogorkeri orrek onartu ez, ta gaiztetsi bearrekoak dira. Txarkeria, beraz, baztertu bearrekoa da-ta; ta atan bere, diru, jakituri ta indarraren gogorkeria gizona zapaltzeko jokera ezain iruditzen jakuz. Aurrerapidea emon bear leuken bide orretaz, bardin dana zapaldu ta atzerakerirako baliatzea, mingarria da. Egia, egiaren bidez jokabide orrek guzurtauta itzi bear dira.

Baiña bizitza obeagoa egin nai danean, len, norberak besteengan gaiztetsi dituan bideak, baliokoak ete dira? Ta mitoak kendu nairik, erreza da, mito barregarriagoetan jaustea. Guztien gaiñetik norbere eretxiak sartu nai dira. Orretarako bide bat aurkitu dabe: gogorkeria. Jokabide au, bear ba'da, ez zan egoki agirian agertzea. Zer egin orduan? Orrek gizartean ba'dau bere aizkide kutunik: Bai, nabar-nabarra, azpikeria.

Ze eratako artatxoria dan au ez dakit; baiña gure artean be onartua izan da. Ederkeri batzuk bota aurretik, ta gogorkeria azpikeriagaz, gero, ondoren. Ez da edozelako jokabidea. Baiña ori ta guzti be, azke izateko jaio ziran gizonen jokabide erritarra, ez etoikeriaz eta ez gogorkeriaz ez dabe azpiratu bear. Olako mitorik ez dau nai, gaur, gure erriak.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

NORGUDA-ZALE

ONU'n guretzako garrantzizko arazo bat erabaki bear zan garaian. Foster Ipar-Amerika aldetik, eta Molotof, Rusia aldetik, bi gizon entzutetsuak, erakunde ortako aurkezlari zirala, demokraziaren izenean, egin bear etzutena egiñez, iñork sartu zigun ziririk aundiena sartu ziguten. Arrezkero emen gabiltz, itxasoan galdutako ontzi baten antzo, olatoak nagusi, bultza alde batera ta astindu bestera, nora joan ez dakigula.

Ipar-Amerikarrak gaizki utzitzen ez duan «kritika» bat egiten ausartzea, ikara ematen du. «Etiketa» beriala ezartzen bait-dizute, ta «Etiketa» onen margoa, zer eratakoa dan, ongi dakigu. Ta ori «pluralismoa» ta demokrazia aipatuaz gaiñera. Utikan Amerikanook. Ta utikan Rusook eta Txinook, esango ba'nu? Ez naiz guda zale, gaztetatik onen atzaparra nere aragian nabaitu baitnuan. Gosea, egazkiñaren ekiñaldi-suntsitzaillea, gurasoen espetxeratzea, erbesteturatzea, ta eziketarako garaian, gaztetxoak izan arren, lan-tokira joan bearra, ta astearen azkenean ematen zigunarekin, konformatu bearra izaten genduen. Iñor geiegi aspertu gabe utzi diogun bide oneri ta asitako ari muturrari eldu dezaiogun.

Vietnam'en burruka gogorra dute, iparaldekoak eta ego-aldekoak, biak alkarren aurka. Iparra, Komunista dala-ta Rusia ta Txina'ren jostaillu dalarik, gudari-legez, ego-aldea bereganatu nai du. Ori leenengo oinkada izango litzake, onen ondoren, Cambodya au, jabetuaz gero, Laos, Tailandi, Malasi, Singapoore, Filipinas ta Indonesia ere bai.

Ikusten danez, ego-aldeak Ipar-Amerikak lagunduta, oraindik iraun nai du nunbait. Ipar-Amerika'k akats aundiak dituala? Eta akatsik gabea nor da? Rusia? Txina? Ipar-Amerikarrak gure erriaren egoerari begira, kezkatu al dira? Ta Ruso ta Txinoak? Gure alde zerbait egin al dute?

Etxeko gora-beerak konpotzen asko saiatu gabe, euskaldunok asko beintzat, auzoko arazoak zuzentzen amorratuak gera. Bakoitzak geure etxean galtza bete lan ba-dugu, ala ta guztiz ere, aleginduko gera, auzoko trapu zarrak astindu ta bere etxetik at atera, ta besteen aurreko aldean jartzen.

Bai, erruki ditut Ungri, Txekar eta Vietnam'go erri zapalduak, ta ez naiz Amerikarren alde, ezta Ruso ta Txino'en alde ere.

UTIKAN ARROTZ, ZAPALTZAILLE ZERATENOK!

MITOAK


Gizonon irastzaillerik aundienak mitoak dira. Lendabizi oso-leun eta samur, gizartearen serbitsurako eskeintzen diralarik, gizartea iltzen saiatuaz, amaitzen dute.

Mao-tse-tuang'ek, komunismoaren ziurtasun eta arrakastagatik, atomika-guda bat aurrera eramateko, ez luke zalantzarik edukiko; ta munduaren erdia xeakatu arren, ez luke atzera egingo. 1957'garren urtean, komunista buruzagien aurrean, garbi esan omen zuan: «Inperialistek» guda nai bai dute, atzera ez diogu egingo. Beraz burrukatuko gera, noski».

Ta berri auek idatzitakoak, jarraitzen du: «Nik beingo batean, gizon politiko ospetsu bategaz, mintzatzeko aukera izan nuan. (Rusoak esaten dutenez, Nehru izango ote zan)». Nehru'n iritziz, atomika guda sortuko ba'litz, ludiaren osoan bizi geranok, illik lurperatuta geldituko giñake.

Bestalde, Mao'ren iritziz, atomika guda batean, munduaren erdia ilko litzake, beste erdia bizirik geldituaz; ta orduan, jauntxokeria ta «inperialismoa» suntsiturik, ludi guzia komunista izango omen litzake, Ameseta utsa ez ba'litz, bai garestia benetan; pentsa, etxe bakoitzean, errietan erdiak erail.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA



ERRIETAKO BARRIAK

Azpeitia

EZ-BEARRA.—*Iztarra apurtuta, Donosti'ko senda-etxe baten, Otaño'tar Joxe Mari, mundu erdiren adizkide dan erritar maitea oean datza. Lenago ez ebillan ondo, bere makillea lagun, an ikusi zenezakean adizkide pillo baten erdian. Orain ogetamabost urte, bere egin bearrak betetzen, orkatillak zauritu zituan, ala ta ere, sendo jokatu du beti, ta ez ziztzaion ez-bear ura, bere bete-bearrak aurrera eramateko oztopo.*

Sendatuko al aiz laister; naizta beste makilla sendoago batekin, gure artean bear augu, ta mundu erdi adizkide dukala, mundu erdi kezkatuta zegok zer jazo ote zaikin jakin naian.

Erriko jaiak ere oraintxe dizkiagu, ta ator omera, eibartar lagunak ere etorriko omen dituk i etorten ba'aiz. Bergararrak ostera; emen izaten dek egunero bata edo bestea, zelan aizen galdetzen.

IÑAKI DEUNARENAK.—*Oraindik ez dakigu nolako jaiak izango diran, eta ezer agertu ba'dute ere ez degu guk ikusi, ba'liteke ardura gutxidunak izatea gu ere. Zerbait ba-zekiagu! Zezenak, beste urtetan bezela, aurten ere izango dirala.*

Azpeiti beti izan da zezenzalea, ta ori ez dala azken aldi ontakoa be errez igarri lezake. Antxiñatik gabiltza zezenen adarren aurrean, ta diñotenez, zezenketa euskal jolasa omen da, Euskalerriak millaka urtetan jolastua; gero, ijito edo emetik jun ziranen bitartez, an, Andaluzia'n ere asi omen ziran, baiña aien izakerari jarraituz, beste era batera jolastuaz. Ta Bilbo'ko burdiñakin gertatzen zana: Inglaterrara bialdu meatza ta aiek torlojuak onera, bardin gertatu omen dek zezenketakin ere, emetik eraman zutena, aldatuta, gauz berri bezela onera ekarri zizkiten.

Or, gure aztertzale urdurientzat lan polita, aztertu, billatu ta berriz euskal-giroko zezenketak berpiztu. Ta ortan, iñor ba'da berezi, azpeitiaren bat izan bear, emen degu ba zezenentzazko zaletasun zaarrena, ta iraunkorrena.

IKASTOLEA.—*Sanjuan egunean bertan jai bat antolatu ziguten bere alde. Etzan baiña baimenik lortu, ta erriko zelai naguzian egin bearrean, ikastolan bertan eta aurreko kalean bete zuten. Ori ez da izan baiña okerrena: zozketa bat asmatu zuten laguntzarako diru pixkat lortu naian, ta ez makala, berebil eder bat irabazlearentzat. Baiña, gauzak ondo egitea ez dalako beti erreza, itxuraz, baimen bereziak etziran eskatu, edo etorri, ta ondoren, zigorra, batu izan dan baiño 8 milla ogerleko geiago ordaindu bearra daukate Hacienda'ko etxeari.*

Mingarria benetan, baiñan galtzean ikasten omen da, ta irakasketa bezela artu dute arduradun jatorrak eta erriak, eta aurrera jarraitzeko, akuillukada batek bezela, bultzada izan omen dute. Aurrera ba, gure euskeraren oberako! Erriak lagunduko dik, ori bai!

LARTAUNGOAK

Bermeo

Ikastola bako jakin-egarri bat naz. Eta nere bizitza guztian an, or, eta emen batuneriko euskerea dakit txarto edo ondo.

Len, guda madarikatu aurrean, euskera alde, eta ele zigortu au, bizi edin, kastellano eta bezte izkuntza batzuetatik itz barri ugariak artu ziran euskera yoskera eta useiñezkoak. Onetara irabazten eban gure ele gexoak. Orduan ez egoan, euskaldunaren artean, ezelako burrukarik itz berri onekaitik poztasuna baiño.

Diñoe, Kirikiño'k esate ebala bere bizitzan, bakotxaren iztegia norberak osotu bear ebala: eta irakurten eben itzak, batez ere egokienak, kolkoan gorde bere ama-elea edertuteko. Aldi aretan ontzat arturiko itz batzuk onexek dira:

Arguntzi: Candil. Farol. Deunoro: Santos. Doipuru: Sumo Pontífice. Donoki: Cielo. Egazkin: Avión. Euskeltzaindi: Academia Vasca. Etoi: Traidor. Gaizkatu: Salvar. Izarrizti: Astronomía. Koldar: Cobarde. Lurruntzi: Buque de vapor. Lutelezti: Geografía. Marrazki: Dibujo. Onetsi: Bendecir. Urtzinge: ATEO. Urrutidatz: Telégrafo. Urrutizkin: Teléfono.

Eta olan beste errenkulada luze bat be euskerara etorri ta asmatu ziranak. Elerti arazoetan be, itz oneik, bein baiño sarriagotan irakurri dira.

Baiño gaurko egunez, irakurri eta entzuten diran euskera itzetan, miñ egiten da belarri eta euskal biotzean. Batez ere «Ateoa»: «Euskal-Hit Parade» eta onen antzeko itz mordoilla ez-jakingarriakaz.

AGUR agerkaria, bere gogo eta menduirudiz, Aranatarren kidekoa dala esan geinke. Jaun ospatsu au, ezan kanpotar izki zalea, ez antzik emotekoa be. Diñoten au, ez ukatutekoa dala uste dot. Eta onelako agerkari baten lerroetan kanpoko itz oneik euskeratu barik erabillitea arritutekoa da.

Gorago asaldu dodazan atzerri itz areik ez elebiztutea... bear ba'da, Greko eta Englandar elea ez jakiteagaitik izango litzake.

A ta guzti ere, asarrea agertu gura neuke AGUR euskaldunari; «Atxe» itza ontzat artzen ez ba'dau (eta egoki da ori nere ustez), ez dayela ontzat artu be «Ateoa» ez «Euskal-Hit Parade», ez diralako itz ezagunak euskaldunaren artean.

Eusko seme-alaberi euskeraz azaldu biar yakoez kanpotar elearen bardiñak doistarren antzera, ostantzean betiko agur! Aitorren Izkuntza Zaarra.

JULEN URKIDI

Deba

Igaro berri degun Loraillaren 19' gnean, emen, Deba'n, Euskariatza'tar Endika ill zitzaigun; Azpeitia'tar Julene, euskal-idazlearen senarra, eta Bilbao'ko San Anton'en euskaldunen Mezetan, Epistola euskeraz irakurtzen duan eta AGUR asterokoan ondo ezaguna dan euskal-idasle, Euskariatza'tar Xabier, mutil gaztearen aitona.

Eriotza eder eta bigun batek ireki zizkion, beste munduko betiko bizitzaren ateak, ixil-ixillik, miñik gabe ta geldi-geldi laga giñuzen bere maiteak.

Agur bada, ta Egun Aundira arte Euskariatza'tar Endika jauna!

Onezkero artua dezu Mexiko'n, urte luzeetan, indio gizajoen alde egindako lan ugariakaz irabazitako saria. Indio aiei ta euren sendieri gosea kentzeko, San Luis Potosi'ko lurraldean, euskaldun batzuek zuten Villa de Reyes izeneko lur-lantze aundi ederrean, utzi ziñuzen oitura ta lege onaren bidez, «tortilla» ta babarrunaz asetako indio, india ta euren umeak.

Zu Donokian sartu zeranean, an aurkituko zenuztan lengo Sofio, Porfirio, Candelario ta beste asko aurretik joanak, eta zuk ain maite, eta beak zu, euren «Patronsitoa», maiteago, al ba' litz, izan zinutenak; ta zure ondora etorrita, a zelako arrera egingo zizuten, ta esan ba-zekitela orra igoko zenula, lendik, beren artean egin zenun lan eder aregaitik, eta inguruan diran Villa de Reyes'eko lagun guziak ekarriko dituzte, arrezkero jaioak edo lenagotik joanak, ainbeste bidar aipatutako gizon zuri on ura ezagutzera.

Goian Bego, Euskariatza jaunaren gogoa, ta Azpeitia' tar Julene, bere alargunak, bere seme Endika'k eta onen emazteak, arrebak, illobak eta ber-illobak, ar bezate gure biotzetik bidaltzen diegun samiñ agurra.

MUJIKA'TAR TENE

Arrate-Arrati

Azi batetik erneak dirudien itz biok, alkar senide ete dira?

Bagillaren 4'gnean, eibartarren goi zoragarrian izan giñan, Arrate'n, eta giputz anai jatorrak esaten zuten bezela, giro berezia eta toki egokia izan genduzan.

Euskeraren ongarri-eguna ospatu izan zan: umeen arteko Euskera Txapelketa. Neskatil maratz eta gizonezkoak, pagadi-areiztian tanbolin eta txistuz Erri zintzoaren itxaropena diran umeai, guraso ta an izan giñan guztioi, kemena ta poza emoten alegindun ziran. Ba-zan, baita, ikustekoa ta pozgarria, bazkari anaikor batek bide egiñik, 36'gneko kintoak goi artan alkarturik, alkar besarka ta agurka ikustea.

Aitatu izan dodan lez, eundaka lagun izan ziran eta, jaiari amaibukaera egitera, etorri oneko eta iturri garbiko bertsolari gazteak artekotu ziran: Narbaitza ta Uranga. Eta entzule ziranak igarotako egun baltz-latzai ta ordu luze-illunai ikutu zorrotzak egin ondoren, txalo-jote bero-beroen jabe egin ziran.

* * *

Lan ziriborro au argitaratuko danerako, Arrati ta inguruetako jairik asko urtuak eta aiztuak izango dira. Egiten ari nazen egun ontan baiña, Dima'ko agintari ta gaztedi, San Pedro jaieri buruz sokatiran diardue.

Sanjoanak eta Sanantoliñak, Oba auzotegiko jaiak, baiña zeiñek jakin zeintzuk diran nagusienak? Sanjoanetan, Sanantoliñenak dirala esaten dauskue. Sanantoliñetan ostera, Sanjoan dala nagusia. An doguz baiña Patxi ta Isidra, eta Oba'tik iñor ez da biurtuko saietsartea ikoldurik.

Arteaga'ko gaztelu-eleizabeitiarrak bere, luki edo azeri bardin samarrak, obatarren antz eta irudiko dira. Iru jai daben errian, ta iñok ez daki —ez dabe jakin nai izaten— zeiñena zein dan.

Emen doguz, ba, Oba ta Arteaga, Jesus'en Biotza, Andramari, Sanmigel, Sanantolin eta Sanjoan. Zeingana joan?

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

ASIKUNDEA.—Bagilla'n 17'gn, arratsaldean ospatu zan, gure erri ontan, lenengoko igeri-tegi barriaren asikundea, ta jakiña, onezpena; Andra Mari'ko txadon zar ta ospetsuaren inguruan laster baten izango dan jolastoki apaiñean. Eguraldi ona be ba-egoan da, notintza andia bildu ei-zan bertan, ainbat geyago bear ba'da igeritegi ortan ospatu ziran igerilarien lasterketak ikustarren; ainbat izan ziran egin ziranak, sari on asko bananduaz irabaslean artean.

Esan dauskuenez, igeritegi barri ori «olinpiku» neurrietakoa ei-da ta, beraz, edozein lasterketa ospatu litzake bertan; egingo ei-dira bat baiño geyago be.

Igeritegi andi orren aldamenean umeantzako beste txikiago bat be oso polita egin dabe, guztiz apaiña, baiña, bata-bestea ikusten ez dirala; umetxuak bear ez daben gauza larregi ikusi ez-dayen-edo; egiz, ez dogu ori txarto ikusiten.

Aipatu dogun Jolastoki ortan beste jolas lekurik be, ia amaituta ikusten dira; esate baterako ostikoketa zelayaren biran izango dan oiñezko lasterkarien bidea edo pista; guztiz ederra ta, jakiña, beardan neurrikoa. Eta, erdian dagon ostikoketako zelaya be bedar orlegiz ederto jantzita, bertan bilin-bolaka asiteko naia emoten dabela aurkitzen da, baiña, oraindik zati on baten ez dot uste jolastuten itxiko dabenik; tamala izango litzake bedar erne-barri ori indartu baiño leen, bertan ibillitea.

Urren, zelaikada orren inguruan pelotatoki estaldua egingo ei-dauskue, apaiña ta ona. Eta, ba'litzake beste jolas batzuetarako be zerbait geyago egitea, Jolasketa apain orretan; eta, bein egiten asi eskẹtiño obe izango litzake aal-danik kirolik geyen egiteko tokiak sortuten ba'dabez. Gauze eder guztiokaz galtzen urten dabena, bertan dogun antziñako txadon erromanikua da, bere inguruan zan antziñako usain guztia aldenduaz doyalako, eta egunen baten txadona bera be aldenduten ez ba'da!...

GEURE ARTEAN.—Alditxu baterako etorrita, ai maite daben erri onetan dogu, jayotzez ta izatez be bertokoa da-ta, aldi baten Elexalde kide ta Bilbo'ko Atletik'eko ostikolari izan zan Mandaluniz'tar Joseba. Frantzi ta Venezuela'ko Karakas'en urte asko igaro ondoren.

Mandaluniz, ez jayotzaz bakarrik odolez ta izatez be beti izan-da euzkotar jatorra eta, bere sor-lekuan, euzko-lurrean, gitxienez aldi bat igaroteko asmu bizia ebanez, gurari ore azetuten etorri dala esan gintzake, nai-ta uste eban ,edo nai eban Erria ez ba'dau aurkitu be. Pozik besarkatu geban ta, guk legez beste galdakanotar askok be. Ongi etorria izango aiz, Joseba.

ERGOYEN'GO BIDEA.—Iñoiz-ez baiño oba da-ta, laster izango ei-da apaindua Ergoyen'erako bidea, orretara itz-emon dautse Erri'ko Endoreak eta, itz-emon ba'dautse berak, ziur gagoz beteko dabela emondako itza. Orretarako auzokideai eskatu dautse laguntza, bide —basterrak garbitu, ur— bideak igiri, burdibil batekin lagundu ta abar, baiña, zeozer danok egin bear izaten dogu orretariko arazoak antolatzeko ta, ergoyendarrak be bide onaren truke zerbait egiten pozez aleginduko diralakoan gagoz. Aupa ergoyendarrak!

BASA-JAUN

Tolosa

«BIGARREN ATALAK», Bitaño

«Bitaño»k, labur baiñan sakonki, bere «Bigarren Atalak» liburuan, Gaspar Montes ta Bienabe Artia'ren gorabera arrigarriak eskeintzen ditu.

Liburu polit au, Bizkai'ko euskeran idatzia dago. Euskera errikoia da, argia ta garbia, ondo ulertzen dana. Euskera batua —neretzat beintzat— ondo ulertzen dana da.

Dana dala, goazen aurrera gure gaiarekin. Oso da interesgarria Gaspar Montes'en bizitza, gertakizun apartaz josia. Ta ala bear, artiztak gizon xelebre xamarrak dira-ta... xelebreak, bai, ez alprojak. Kontuz!

Leenago illargian bizi omen ziran; orain... Jainkoak daki nun... Naiko larri bizi dira, beti bezela!

Gure gerratea baiño len, 1926'gn urtean, Gaspar Montes eta Bienabe Artia'k erakusketa eder bat egin zuten Madrid'en Ateneuan. Biyok paisajista bibaiñak izan arren —naiko klasikoak, Ramiro Arrue ta Ascensio Martiarena bezela—, ez zuten ezer saldu! Ezer saldu ez eta milla pezeta galdu; negozio aundia benetan!

«Ameriketara joatekotan ziran 1926' gn urtean» esaten digu «Bitaño»k, baiñan azkenean ez ziran jun. Gauza bat da noski laukiak margoztea, ta bestea saltzea! Ta, gaiñera, Ameriketa ain dago urruti!

1935'gn urtean, gure Montes, Paris'era ere joan zan. Ikusten degunez, orduan, Paris oso merkea zan.

Gero, gerrate ez bearra, ta erbestera, Sara erri txiki, txuri ta xarmantara... ta azkenik, berriz Irun'era, lana gogoz, jo ta ke, egitera.

Bitartean, Bienabe Artia, or ibilliko da Ameriketa aldean, onek, azkenean, bete du bere asmoa.

Bi paisajista bikaiñak, Gaspar Montes eta Bienabe Artia; margoz eta alaitasunez beteak; baita Ascension Martiarena ere, zumaitarra, orain 6 urte dirala illa. Gizon umil, langille oiek —naiko aztuak daude irurak—, mundu ontan ezin izan dira goralduak izan. Ez al dute omenaldi txiki bat merezi?

Ala, dena «turismo», «folklore» ta kirola bakarrik izan bear al du?

MATXIN

ARTZAIN ONAREN OMENEZ

XIII Yon'en deuntasuna

Aita Santu ospetsu au deun iragarteko lanak aurrera doaz. Bere eriotzatik bederatzigarren urtean, ardura ori daben Kairoli abak iragarri dabenez, lanok aurrera, ta gauzak ondo aztertuta, bere bitartekotasunez osatu diranak ugari dira.

Euron artean, Polenza'ko lekaime Katariñe Kapitani, osagilleak iñondik osatu ezintzat emona, urdailleko zauri zulatu batetik, batera osatua; eta bestea, Sizilia'tar emakume bat, Giovanne La Terre Majore, gurintxoen idorberri —tuberkulosis— osatua, osagilleak osatu ezintzat emonda gero au be. Baita Ipar-ameriketako osagille bat, urdailleko anditu batetik, XXIII Yon'i eskatuta gero.

Yon Aita Santua, deun-entzuteagaz il zan eta berealan deun iragartea askok eskatu eben, bere kemen, zurtasun ta maitasun a arrigarriak izan ziran-eta. Baiña VI Paul'ek, XII Pio'ren auziagaz batera ebaztea gura izan eban, eta —1965-XI-18'gn— Eleiz-Legeak agintzen daben bidetik yarraitzea erabagi eban. Auzi au aurrera doa, ta bizkor atan be!

XXIII Yon idazle

Aita Santu au idazle ona izan zan. Etá aldizkari ta izparringietan ainbat urtetan idatzi eban. Bere ontasunak, bere yakituria estaltzen eban. Baiña idazle trebea izan zala, aldizkarietan ainbat urtetan idatzi ebanez gaiñera, Radini-Tedeschi gotzain ospetsuaren idazkari, amar urtetan izanda gero, aren bizitzea idatzi eban, eta eleiz-edesti zaletasuna biztuta, Karlos Borromeo kardenala eta deun ospetsuaren lanak azaltzeko, abadegayan irakasletzatik gaiñera, tarteka, bost idazti zituan. Lenena, 1936'gnean argitaldu eban, ta bostgarrena, Aita Santu egin eben urtean, 1956'gnean.

Eta, jakiña, Aita Santuaren idazti lez argitaldu gura eben, baiña berak Ronkalli izenagaz argitaltzeko agindu eban. Bere zentzun, zurtasun eta deuntasuna, idatzi zituan millaka eskutitzetan argiro agertzen da, bizi-bizi. Eta bere gomuta oindiño bizirik dagola jakiteko, auxe da naikoa. Bere eriotzako bederatzigarren urtean, eun milla lagun eldu dira Sotto il Monte, bere yayoterrira, Bagillaren 3'gnean.

MANTEROLA'TAR GABIREL

ZAARREN ARAZOA

Zaartzaroak, gizonari, zimur sakonak ezarturik baldartua uzten du. Gertakizun au, ludi guzian berdin izan. Baiña, zartzaroak gizonari dakarkion arazoaz. Munduan zenbat kezkatzen dira?

Bonn'en aztuta ez daukatelarik, izugarrizko ezta-baidak sortzen ditu. Euren xedea, auxe da: atseden-aldiko urteetara eldu baiño leen, biarrera joateke, bizitzeko era izatea. Ongi irabazia bait-dute! baiña, gertatzen dana, oso alderantzizkoa da.

Lanari ta lan-tokiari utzitzeko unea iristen danean, gizona zearo goibeltzen da. Alde batetik, lanari uztearekin, erantzunkizunari utziaz, gelditzen zaizken urteetarako, lasaitasun pixka bat artzea bearrezkoa dala, eziñ uka.

Bestalde, gizon askorentzat, bere barnean daraman argirik dirdiratsuenak, itzaltzea da. Gertakizun onek, maiz, gizartea alde batera utzi-erazten bait-du; ta artu-eman auek uztea bere garrantzia dularik, gora-beera auek, sikika aldetik, gizonari, oker aundiak ekartzen dizkio.

Oraindik, lanean sendo ta adiñ ortara iritxi ez dana, ez bait-da arazo auetaz ajolatzen. Baiña, ziur-aski urte asko igaro baiño leenago, bere aragian arantza onen zaztakada nabaituko du.

Sartaldeko-Alemani'n, 100'dik, 13, 64 urte betetakoak dituzula, auek danak, zartzaroaren oztopoak salbatu bearrean aurkitzen dira.

Dakiguna, au da: argi ta garbi ikusia dagola; gazte-aroan, leenengomaillako ikasketak egindakoa baiño, batxillerra edo goi-maillako irakaskintzaren jabe dana, aldikada au, askotaz ere errazago eramaten duala.

Diru-aldeari begiratuta ere, batxillerraren jabe danak pentsio aundiagoa dauka. Era ortan antolatua dagonez, gizarteko artu-emanetarako ere, garrantzi sakonagoa du.

Gaur egun, 65 urte baiño leenago, askok, lanari uzten diote: ta onen sustraia, sikika aldeak dakarrena da.

Arazo onek, gizarteari galera aundiak ekartzen omen dizkio: baiña, gaurko gizarte aurrerakoiak, gizon auentzat, oraindik, lan-toki berezirik ez du eratu.

Ipar-Ameriketarrak, lan-toki egoki batzuk antolatuaz, 100'dik, 75'ek, lanean jarraitu eziñik ez daukatela, ikusi dute.

Arazo oneri buruz Europa'n, eredu bat edo beste ba-ditugu. Adibidez: Holanda'n, Philips etxeak, Eindhoben lantegian, zaartuta lanari utzi bearrean aurkitu diranentzat: 300 irabazpide dituzte. Batez-beste 70 urte beteak eduki arren, eak egindako lanak, ludian zer esanik ba-du.

Beraz, arazo au, politikoak ardura geiagorekin artu bearko dutela, garbi ikusten dugu. 1975'go urtetik aurrera, 65 urte betetako alemandarrak, 100'dik 20'ek, auteskiaren jabe izango dira.

OSARTSU

BAI DAKITE, BAI

AGUR'eko langille guztiai pake santua ta alkartasuna!

Irakurten ditut Arenaza'tar Josu'ren ataltxoak; egi mardulak esaten ditu sarritan. Bere euskerea garbia ta erreza da neretzat beintzat, eta itz batzuk kendu ezkero, oso bizkaiera diralako, beste guztia, uste det, Euskal-Erri guzian ulert erreza dala. Baita Galdakano'ko Basa-Jaun'ek ere, itz batzuek gipuzkeratik eta narparkeratik sartzen ditula, erreztasun aundia ematen dio bere idaztankerari, guk ulertzeko.

Alditxo bat ba-da, idazpuruan ekarri ebala ono au: «Euskera batua ala Euskera erderatua?» Egi sakona; bakoitzak jakingo du zein asmogaz idazten duan, baiñan, or salatzen dan «euskera» bear ba'da, nayago det ixildu, gure euskera orrela zanpatu ta aztakatu baiño.

Arritzeko beste gauza bat: Or, h'rekin dabiltzanak, goi maillako gizonak eta jakintsuak izango dira —beak alan esan— eta, ala ere h'ren baitan batasuna dagola uste izatea zorakeri aundia, nere iritzian. Ze balio du itz bati erdian h ipintzeak, bertako itza tut ezpadu ulertzen irakurleak?

Sarritan ainbati esana naiz: «Euskeraren batasuna aurreko lana da. Euskaldun danok alkarren euskera ta itzak ezagutu ta ulertu, ta aien lekuan ba' nintza, lekuko euskera erabilli. Bat, beste toki batera joaten danean, an itz egiten dana ulertu bearra. Neretzat au da leen mailla: alkarrena ezagutu ta ulertu. Gero, denborak ekarriko du danok euskera jator bat itz egitea.

Bein 20 urtera ezkero ta izkuntza batera oitua izan, andik aurrera oso zailla zayo beste izkuntza batera jartzea, joskeraz bestaldez ba'da okerrago, baiñan ez da zailla bere joskerakoaren ezbardintasunak erabiltzea. Joskera okerrekoa, ulertu bai, baiña itz egiten ez da erreza, txikitati ikasi ezik.

Gure ikastoletan, batez ere, lan aundia egin leike Euskal-Erri'an; batu ez, baiña apurtxo bat urbildu, ta urbildu ezkero okerrena zuzendu dela nik uste. Neretzat or dago lanik garrantzitsuena. Euskalkietan baitago Euskeraren biotza, eta biotza pizkor eta sano ba'degu, itxaron genezake ezgerala oraindik ilko.

Gero, h'ren kontua; bistan da traba aundia dala, bai idatzi ta irakurtzeko. Ori edozein geldok ezagutzen du, ta «jakintsuak» obeki. Nik, beste ezer baiño geyo, au ikusten diot: zime gaiztoa, seta ez utzi nai. Batez ere, erdiko hache ori ezin det ikusi. Zeiñek esango dit neri, maia esateko errezago dala mahaia, albada, ahalbada; edo lenago, lehenago esatea? edo idatzi ta irakurtzea?

Orrela beste gauza asko. Ta neretzat nekagarri ta oso zatar eta itxusi gelditzen da, ta pizkat irakurtzen asi ta gogaitu egiten naiz eta baztarrera uzten det. Gaur euskera arkitzen dan eran, aiñ estu ta larri, zertako jarri ezintasunean eta nekagarri? Zertako, bai zertako?

Guziz bestera bear da; al dan samurrena, laburrena ta atsegingarri edo gustogarri ipiñi bear litzake, euskera bera ondatu gabe, bestela ez da aurrerapenik izango; atzerapena ezpada, ta ortaz ondo gaude len ere.

SOIÑU-ZALE

APURTU, EZ

—Ik eskeindu eutsazan baiño errial bi merkiago saldu ei-jeutsazak.

—Zelan dakik ba, ik?

—Kapuano'ri entzun jeutsak, Anbroxio'k.

—Zoratu ditxuk danak. Oszilante bakoitxian ez genduazan iru errial baiño irabazten, ta orrek errial bi merkiago guk baiño! Ezin lajeikek!

—Ba, olaxe dok. Bosteun oszilante, esmitzbentsonak Brasil'erako, ta irureun esmitzbelga Arjentina'ra.

—Olan jarraitzen ba'juagu, zorrixak jango gaitxuezak danok. Zorrez jota bankuan, ta zorriz beteta, poltzikuak beintzat. Zeozer ein biar juagu!

Ta, alegiñak egin ziran. Fomento'an, bein ta barriz alkartu ziran Eibar'ko olagizonak eta arduradunak, baiña alperrik. Ainbestetik merkeago ez saltzeko erabakiak artu gaur, ta, biar bertan, ogorlekoak lau pezetan saltzen bata eta bestea.

—Ez ditxuk izan baiña oszilantiak. Antxiñatik jeukaguazan Nagant zar batzuk baiño, ta ez gero «beritabliak».

Ez ez ziran izan oszilantiak. Nagant'ak be ez baiña; amabi tirako 9 mm'ko automatikak baiño, barri-barrixak eta merke be merke, «datorren zapatuan jornalak emon bear jitxuagu-ta».

Erri batek, berea danari eusteko, iñoren aurrean zeozer dala erakutsi ta arpegi emoteko, baita beste edozertarako be, ez dau naikoa izaten bere seme argiren batzuk alegintzea, ta gitxiago, bakoitzak bere aldetik eta burutakizunetatik jokatzen ba'dau.

Ezertarako, baiña batez be, kopiñen antzera erabilliko ez ba'dabez, bere nortasuna ta erri osoaren atzeko-bulzada indartsua erakutsiko dituen Alkarte baten buruak sortu bear. Ori egiten dabe laterri edo estaduak, ori erri aurreratuetako erostaille, saltzaille ta bestelakoak, ta ori galtzen dabenean, estaduak eurak be, nortasun barik, iñoren azpian geratzen dira.

Olakotxe Alkarte bat sortzea nai izan zan Fomento'ko batzarretan, baiña alperrik. Bere erria baiño, bakoitzak bere burua maiteago.

Ez zan Alkarte a onartu ta gitxiago indartu. Txarra zala, ez zala ezertarako gauza, alperrikoa zala, ta, berialakoan zapuztu. Ta gaitza ta okerra, ez etozan txarra edo ez ain ona zalako. Alkartea osotu ta bizi izaten laga ez jakolako baiño.

Iñoren, bai agintari naiz erbestetik etozen erostailleen aurrean, Eibar'ko Alkarte baten buruak agertu al izan ba'genduzan, nai obeak, nai makalagoak, gure nortasunaren erakusbide arek ez eban ogorlekorik ain merke saltzen lagako, ezta eibartarren esturasun, laneza ta lorik artu eziña ain kezkagarriak izango.

Orra ba, erri batek, txiki nai aundi, bere buru erakutsi, bere nortasun izena agirian erabilliko daben Alkarte buruak izan bear; ta iñoiz ez ba'da ososoan ona, urrengoan izango da obea, ta ordu estuetarako an eukiko dau bere izateran ezaugarri ta euskarri.

Ta, onegaitik edo orregaiik, edo ator jokoan, barrutik naiz kanpotik, Alkarte ori apurtzen alegintzen danak, ez dau errian bizi izaterik merezi.

BEIZTEGI'TAR JON

AGUR

III URTEA
47 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - GARILLA - 15

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

JAINKOA BAI

Ba dira, gaur egun be, Jainkoaren siñisterik ez daben gizonak. Ez dakit nik beste aldi batzuetan baiño urriago ala ugariago. Baiña naikoa ugari.

Eta zergaitik ukatzen dabe Jainkoa? Batzuk euren adimenak ori agertzen dautselako. «Jainkoa», diñoe, «zeru-lurren egille lez agertzen dauskue, eta mundu au egiñekoa dan ezkero, egillea bear dauala». «Ba», erantzuten dabe, «egin daigun ludia egin bagakoa dala, ta ez da bear Jainkorik».

Ba leiteke beste askok Jainkoa ukatzea eurai agertu dautseguen Jainkoaren irudia guzurrezkoa izan dalako. Bere izaki adimendunak zorrotz zigortzen dituan Jainkoa, Jainko gogorra, Jainko oiñaze-zalea, Jainko bildur-emoillea, nortasuna gizonari kentzen dautsan Jainkoa... Ta, jakiña, Jainkoa, ori guztia ba'da, uste izan dabe, Jainkorik ez dogu bear, Jainkorik ez dago. Eta Jainko bako biurtu dira. Zioa? Guzurrezko Jainkoa agertu jakelako. Benetako errudunak olako Jainkoa agertu dabenak.

Beste batzuk diñoena auxe da: «Ludi onetan egin bear doguzan gauzak egiteko ez dogu bear Jainkorik. Gaizoak osatzeko osagilleak daukaguz eta osagilleak osatzen ez dauana Jainkoak ez dau osatzen».

Bide orretatik ebiltzazan arako illargira joan eta bidean Jainkorik ez ebela ikusi esan ebenak Zelako Jainkoa ete egoan arein buruan? Izar arteko bizardun aguraren bat zala uste ete eben?

Gaur Jainkoaren areriorik bizienak lez marxistak agertzen jakuz. Eta zergaitik ukatzen ete dabe oneik Jainkoa? Euren mundu barriztatzea egitean kaltegarritzat daukelako, domu-zaleen aldezkoa ta gizarte-zaleen arerioa dala uste dabelako. Argi ikusten dogu eurak ukatzen daben Jainkoa guzurrezko Jainkoa dala, ez askatzaillea.

Eta emen itaun bat egin bearrean aurkitzen gara. Benetako marxismoa benetako Jainko askatzaillearen arerioa ete da? Edo beste era batera: Gizarterako, Jainkoa ta marxismoa alkartu eziñak ete dira?

* * *

Baiña guk Jainkoaren siñistea ba daukagu. Eta gure adimenak, ezin ukatu alako argitasunez, diñosku Jainkoa ba dagoala. Eta ezetz esango ba geunke guzurtiak eta asmo txarrekoak izango gintzakez.

Orain Jainkoari buruz egin leikezan itaun askori erantzuteko gai ez gara.

Zelakoa da Jainkoa? Ona bai, txarra ez; jakituna bai, ezjakiña ez; gogoa bai, gorputza ez; betikoa bai, aldikoa ez; indartsua bai, makala ez; maitalea bai, gorrotatzaillea ez; adimenduna bai, adieziña ez... Emen agiri diran izakera onak, beragandikoak diran ezkero, beragan be izango dira... baiña ortik aurrera...

Non dago Jainkoa? Txikitan erantzun erreza emon euskuen: toki guztietan...


Baiña gaur egokiago erantzun geinke, bere izakietan dagoala, eurakaz lan egiten, eurai eusten... Eta lan garrantzitsuagoa egiten dabenen artean batez be. Esaterako adimendun gizonetan. Dana ez da Jainkoa, ez goaz panteismora, biña diranetan dago bera.

Eta, geure bizi-aldiaren laburtasuna ikusirik, beste au be itauntzen dogu: Gure aldia amaitzen danean, zer? Buda' tarrak nirbanaren siñistea dabe: gero Jainkoagaz bat izango gara, Jainkoa bera izango gara. Ikusten dan lez panteismo batera jo dabe.

Guretzak, bera ona dala siñisten dogunentzat, geroa bere eskuetan itzi ez da oba izango? Emen barruak eskatzen dauskun lez gogotsu ta zuzen jokatu daigun, mundu barri ta obea egiten alegindu gaitezan, bearrez dagonari lagundu daiogun... eta geroa ona etorteko deitu euskunak berak atonduko dau, guk ezin geinke.

Jainkoa bai; Jainkoa, askatzaillea ta ona; Jainkoa, gizonetan batez be dagona.

AGUR



Ba-da, bai, barrutik aztertu bearra! (Uxue)

ZER SIÑISTU GAUR?

Fayard'ek egiñiko idaztian, «Eleiza'ren saspi asmakizun nagusiak» Yesu'ren Lagundi'ko Aita Karl Rahner'en eritxi ikaragarri bat, gaur Eleizeak daukon estualdiari buruz, loji aldetik batez be, aurkitzen dogu. Gaur ezautuen eta diñoenez aurreratuenetariko teologua gandik datorrelako, eritxi orrek ikaratzen gaitu. Esan dogun idaztiaren 40 orrialdeko atzalburuan: «Munster ikastetxe nagusiko irakasle Rahner eta Metz tarteko alkar-izketa»n aurkitzen da eritxi edo agermen ori. Euren arteko jardunbide onek Batzar Nagusi osteko Eleiza'ren asmakizun berezietzaz mintzatzen dau, batez be Rahner'rentzat garrantzienen diran onetariko irutzaz.

Lenengoa, berak diño, Jainko gaia da, Jainkoa izatearena. Ta, au, gudulari agertzen dan ateokeriaren aurka; gizarte iraskunetan dagon ateokeriaren aurka eta, au bai arduragarria!, ontzat artuten dala, gurean sartuak diran Jainko gaiak jakin gura eztauzan ateokerien aurka.

Bigarrena, Jesukristo Bitarteko ta gure kristautasun izate oiñarriaren asmakizunaren, Kristoloji asmakizunaren jarri daben aurkez-aurke, buruz-buru anaitasun gizadizkoaren, kristautasuna gitxitu ta laburtu gura dauan, «anaitasunaren» aurka.

Irugarrena, gizonak norberaren salbazioa indartu ta jadetsiteko daukazan bideak: Neure izate oraingoan ba-ete-dago Jainko grazi-donetzaillerik? Otoitza, yaurespena, gurtza, jaupari bizitza, betiko bizitzaren itxaropena ba ete dira? «Ona emen, nire ustez», diñosku aita Ranher'ek, «erdi-erdiko, eztabaida ta gaiak». Geure oraingo egokereak aurkeztuz begitaratzen dauskuz egunero, bein eta barriro, baiña betikoak dira. Iru asmakizun orreik ez dira Eleiza zintzoan saiatu bear diran egitazko gai ta asmakizunak bakarrik, baita, eta batezbe, neurritasuna, edo erderaz esaten dan lez, «dimensiñoa».

Ogei urtetik onantz, teologuen artean, Rahner izan da gizon «aurreratua». Baiña orain, beingoan, Eleizaren izate erdi-erdiko asaba zaindarien artean lerrokatua izan bear dala esan dau. Len ezker aldeko gizona, orain eskoi aldekoa, baiña ez beragaitik edo bere buruz, egoerak besteak aldatzen dabezalako baiño.

Aitormen ikaragarria: «Au olan dala, arerio jasarketea sortzen dakiana Eleiz barruan dagola, bat bateko biotz-ikarea dot»... mintzatzen dau Rahner'ek; «bertan, Eleiz barruan, Jaungoiko biziaren, Jesukristo'ren jakitun-gaia salatu ta aurkeztuten da; bertan mundukeri, «desakralizazio» eta beste orrelango gaiekaz eskueratu, gudukatu, eztaibadatu; bertan siñits-auste ta bidegabekeri kristau bakoak sortuko dira. Eztakigun arrazoiakaitik, ez gaitue Eleizatik aterako; ez da au euren gogoko. Baiña kristiñau zintzo guztien eginbear bear-bearrezkoa asabengandiko siñismen jatorrizkoa al-dogun indarrez eutsitea da, eta arpegi emonda, aurrezkatu, ezezkoa egin, biotz barrutiko benetako ondamen, kondenazio jaurtigi».

Kristau, Kristo'ren jarraitzaille gura izan dabeenak, nai ta ez, oiñarrizko irakaskintza, doktriña oneik iraun arazi bear dabez: Jaungoikoa'ren izatea, Kristo'ren notin edo persona ta bere Barriona eta salbazioren izatea ta gizonak daukozan salbatzeko bideak. «Sekularizazio, dasakralizazio» ta onein antzeko okerkuntz egiteak aurkeztatu, gudakatzen ditue oiñarrizko ta egiazko irakaskintza areik.

Eta zelan geratu gaitekez lasai baketsu Eleiz barruan kristautasun jainkobagea dabillela entzutean, ta teologu eragille batzuk zentzunbagako esate aburu onelangoak diñoela jakiñik: «*Kristo aldendutakoan, kristautasunak, etorkizuna izango dau*».

Ez gaitezan ba arritu, Erroma'ko Aita Santua'ren ardura, kezka ta buruausteakaitik. «Anaien, kristau guztien siñismena indartu ta eutsiteko» Kristo'k ipiñi ebana, bera da. Aita Santuakin, egiazko kristauak gareala diñogunok edo izan gura dogunok arduratu bear.

LETONA

GURASOEN ESKUBIDEAK

Oitureak eraginda-edo, aspalditik, esames eta kirtenkerientzat gortu nintzan. Dana-dala, noizik beingoak zirkingarriak izaten dira, nai ta nai ez. Lengo AGUR baten, Ozkiñ'ek iñoanez, «Arenaza ta beste fazista oiek» ei-gara Donosti-ko batzuentzat. Orain barriz. Algorta'n bizi dan «señorita» batentzat, «antivascoa». Eskerrik asko!

Entzun eutsenak esan eustanez, euskaldunak ei-dira ezagutzen ez dodan «señorita» orren nebaarreba guztiak, euren ama errizizaleari esker. Jaungoikoa eta Legezarra ikurburutik ateratako izenen bat be ba ei dauka senide artean... baiña besterik, ez!

Euskeraren aldeko lanetarako astirik ez, aurki; ezertariko egintzarako, gauza ez; Baiña, ori bai!, iñoiz ekintzailleren bat zigorpean edo eriotz bidean dagola entzun ezkero, illetarien antzera, erostaka ta buru erakusten joaten dakiana! Ba-dau gure erriak olako ekintzailleengan itxaropenik!

Baiña, «antivasco» iñori deitzeko gertu... tira, tira! Ta, ba-dakizu zergaitik? Zorioneko —edo zoritxarreko— «euskeranto»aren maixueri bizkarra emon dautsegulako. Ta, zer besterik egin daikegu, euskerea ikasi barik euren buruak maixutzat daukezenekin?

Orreitariko batek, orain arteko irakasketegaz ez dala ondarrutarrakin izketan ulertzeko gauza izan, esan ei dau. Nola ulertuko du erriaren izkuntzea, izkuntzea bera ez dakian sasi-maixuak? Ta, orain «batuagaz» bai? Tira, tira mutillak! Ez naiz ni euskerearen batasunaren etsai, EZTA MILLA BIDER! Erderantoaren etsaia naiz; Euskerea ikasi barik «maixu» izan nai dabenen euskera gaiztoaren etsai bai.

Nire iritziz, gaurko erdal-giro onetan, ezertariko euskotasunik barik, gure erriaren ofizialtasunik barik, ezin dogu euskerea egun batetik bestera «batu»; ezin «dekreto» bidez errian sartu erazo.

Nire ustez, bidea, beste au da: Lenengo erriaren izkuntza bizia ondo ikasten, bakoitza alegindu; gero, landuz eta sakonduz, al dan neurrian indartu ta zabaldu, eta, erabatera, euskalkien bardintasunik eza moztuaz, batasuneruntz jo. Umeeri, lenengo maillan, sendi arteko izkuntzea iarakatsi, auzoan erabilliaz, erriakin izketan aberastu al izango dauan euskerea bera. Aoz dakiteneri, irakurten eta idazten irakatsi, dakiten aixe berbera obetuaz, au da, «alfabetatu». Urrengo maillak, aldizkari ta irakurgaiak dira; batak bestearena ikasi ta ulertuaz, guztionagaz jabetzeko. Erri orrela landuak, izango du bai «batasuna» lortzeko nortasuna ta almena...

Ez baiña gaur nai dan lez: euskera bizia galtzen iztea ta «kaletar intelectualen» barriketa merke ta landu bakoa eredutzat artzea... olakorrik! Olakorik ikusten da, bai, gaurko nagien eginkizunetan: zirriborro ta merkekeri «aurreratuak», alperkeriaren ume, ta ez-jakiñaren estalgarri.

Ni, euskera batuaren etsai... Baiña, ba al-dago euskera baturik? Ez!, orain arte euskerea «atxetu» baiño besterik ez da egin. Ta, ondo dakienak, h'akin be ondo; ez dakienak, h'akin erderantoan, baiña txarto. «Batu» deitzeko ikurra sartu bear... beste batasunik ez dago. Aditz joko «barriak» sortu ta bakarra aukeratu ez ba'da, zelako izkuntza da «batu» ori? Argi dago guretzat: h'keriaren politika kutsuzko ikurdun-kera. Betiko Euskerearen eta euskeltzale jatorren aurkakoa.

Ori dala-ta, bizkor dabiltza ikastolarik ikastola, euskerantoa sartu naian, baiña h'agaz batera, beste gauza asko dakarrez. Au da: gurasoak konturatu barik eziketearen aldakuntzak; kristautasuna alperrikotzat salatu; errizaletasunaren ordez, «internazionalizmoa»; euskal nortasunaren ordez, «leninismoa». Ekaitz oneri nola aurka egin? Errez.

Andereiño ta irakasle asko, geienak, zintzoak dira. Gurasoekin bat eginda umeeri euskal-eziketea emoteko gertu. Gurasoak dira seme-alaben eziketearen arduradun eta erantzule bakarrak. Ez dago itsu-itsuan, ardi-narruz jantzitako otsoen eskuetan izterik. Guraso asko itxartzen asi da, baiña garbiketa sendoagoa egin bearko da oraindik.

Jainko-bako ikastolak nai dituezenak, eskubide osoa daukie; gertatu begiez eurenak, ta ez iñoren izerditik loditu. Ta, zu irakurle, kristiñaoa ba'zara, ta EUSKERA beraren, euskera errikoiaren aldeko, aztertu egizu zure umeen ikastolako giroa: eskatu, galdetu, entzun eta arduratu. Euskerea ikasiko ba'dabe zure umeok, ez da naikoa ikstolara bialtzea; euskeraz egin etxean, eta baserri batera bialdu oporretan... baiña, euskerea dalakoan, zure umeak edozeiñen esku zikiñetan ez itzi.

Zuk aita, ta, zuk ama, zeuek dozue itza, ta Jainkoaren eta erriaren aurrean erantzunbearra. Ba-dakit, orain barriro, «antivasco»a naizela esango dabela... orkonpon! Obe da gauzak aurrez-aurre azaltzea, gero konpondu eziñik ibiltea baiño. Bakoitzak daki bere barrua, ta erriak be bai, guk lez arpegi zabalez eta garbi be garbi azaltzen dabenaren jokabidea. Ta, ez arrokeritzat artu, arren, baiña ea Bilbo'n eta Euskal-erri osoan olako «antivasco» asko lortzen doguzan!

Eskerrik asko Algorta'ko «señorita» orreri, nire barruko sua berbiztu dozulako... eta ekin ama onak erakutsi eutsun euskera betikoan!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

bilbo'n be zerbait

Bilbo geien geiena aspaldiko urteetan erdeldundu zala jakin jakiñeko gauza da; baiña bertan euskal tankera daben zertxo-baitzuk beti iraun dabe ta gaur bere irauten dabe: or, ezatebaterako, txistulariak. Joan dan illean arratsaldero, San Anton eliza atarian ikusi doguz, euren soiñu zoli ta atsegingarriagaz Bilbo zar inguruak poztuten. Udal-etxeko txistulariak urteko igande guztietan goizetik kale ibillera egiten dabe, ta eguerdian, San Anton'go elizpean ekiñaldi alaia izaten dabe. Urtero, Irutasun-Trinidade egunean asi ta Gorpuzti urrengo eguenera arte, arratsaldeko zazpiretan asi ta bederatzirak arte, euren jantzi bereziakaz apaindurik, txistu ekiñaldi zoragarria egiten dabe. Zergaitik oitura eder au?

Orain larogei urte inguru arte Bilbo'ko Udal-etxea San Anton'go elizari josia egoan. Antxiñako aroetatik, Gorpuzti eguna aundikiro ospatua izaten zan Uri onetan. Gorpuzti eguneko elizkizun eta eliz-ibillaldia Santiago'ko (orain Eliz naguzi-Katedrala) parrokian egiten ziran eta Gorpuzti zortzigarren eguneko eliz-kizun-eliz-ibiltea San Anton'en ostera, alboan egoan Erriudalak lagundurik. Gorpuzti jaiak goraldutearren, txistulariak, Irutasun egunetik Gorpuzti urrengo eguenera arte, txistua joteko oitura ori sortu zan.

Bilbo'ko Udal-etxea orain dagon tokira aldatu zan, baita ere Gorpuzti jaia beste era batera ospatuten da Bilbo'n, eta Udalak ez dau artu-emonik jai orregaz, baiña txistulariak, antxiña antxiñatik eben oitura berezi ta ederra ez da kendu, ez aldatu ere. Gaur bertan be or jarraitzen dau euskal biotzen pozgarri.

Bear bada beteron batek oitura ori folklore bat bakarrik dala esango dau, ta ori baiño geiago bear dala. Bai, egia da, euskaldunok, alde guztietan, baita Bilbo'n ere zer edo zer geiago bear dogula; baiña folklore au bere ez dago txarto, bedorregaz Bilbo'n be ba-dogula zerbait esan geinke, ta oitura ori kendu bage, euskal jakintza, euskal gogoa ta euskal izatea indartuten asiak gara gure uri nagusi ontan.

Lengo oitura zarrak gordeaz alegindu gaitezan Bilbo'n bere, lo zorroan dagoan euskal arima, guztion artean esnatuten. Orrela gure ondorengoak esango aldabe Bilbo uri aundia ere euskal erri euskalduna dala. Azkenez, txalo ta agur bero bat, Boni, Bilbo'ko Udal-etxeko txistularien buru zaren orri: Jarrai, zure lagun, talde ta mutillakaz, zeure lan eder orreri!

GALLASTEGI'TAR KAULDI

ELEIZEA TA ELEIZ-GIZONAZ IV

A) Euskerearen Aurkako Eleiz-gizonak

Bai; tamalez izan dira euskerearen aurka egon diran eleiz-gizonak. Jundako aldietan gaurko egunetan baiño geitxoago-edo. Euren izenak ona ekarri bearrik ez dogu.

GENTZA ILLAI. *Pax mortuis!* da laterazko esakuna, eta orixe da izan be illentzako gauzarik onena. Oingorako erantzun dabe Jaunaren aurrean, eta euren egite okerrak asmo ona izan ba'eben, euren barrunpe onak-edo betiko gentzara eruango edo-ebazan; baiña aratu baiño len ikasi ez ba'eben, oingorako ikusi dabe etzala Eleizearena, eurena Eleizea bai'litzan, leporaldu gura izan euskuen irakaskintza ta zamea. Eurak «*nihil innovetur*» bategaz jarri gura euskuen beaztopoa Batikanoko II Batzar Nagosiak erriaren onerako oiñarri letz jarri daula *(Sacrosanctum Concilium, 63)*; eurak batzuentzako gozokiak sakelean eta beste batzuentzat zigor-makillea eskuan eukiezela esan ba'eban, Eleizeak gaur eta beti beste elburu au gogo-gogoan izan daula: «zautiruak sendotu erkiñak indartu, gizen ta guriak zaindu» *(Ezekel 34.16)*.

Euretariko batzuk, il baiño len be, ikusi eben eta ikasi oker ibilli zirala. Bategaz, batez be, gomutetan naz oraintxe. 1932'gn. urtea zan. Ni Paris'en, ango Mission Espagnole'ko zuzendari letz, nengoan. Ni an nengoala jakin barik, etxe aretan iru-lau egun egiteko asmoz, bertako atetara jo eban ni, amar urte lenago, bere goterkitik erbestetu ninduan gotzain jaunak. Bere lagun letz ekarran jaupari jauna euskotar euskalduna zan, eta biotz osoz euskalduna izan be. Bizi da ondiño eta euskera-aldez jokatzen dau gaurko egunetan be.

Ez neutsan Gotzain jaun areri iñoiz gaizki nairik euki, eta al izan neban maitetasun zabalagaz artu neban. Bigarren egunean-edo Gotzaiñak auxe esan eustan: *Zu? baiña euskerea ez da ezertarako.* Eta nik arin be arin erantzun: *Jauna, euskerea beste edozein izkera bezin ona da edozertarako. Entzun: lengo egunean or Paris'ko Quay-d-Orsay'ko geltokian emakume bat erdi galduta ebillan Lourdes'erako zein bultzi artu ez ekiala-ta. Emakume arek ingelandera, españera ta EUSKERA ekiazan. Ni be an aurkituten nintzan eta jakin erazo eusten emakume a euskalduna zala ta erdi zoratuta ebillala. Beraganatu nintzan lastertxe ta euzkeraz jakin erazo neutsan zein bultzi artu bear eban eta gero Bordel'en naiz Bayona'n aldatu ta Lourdes'era zuzen juango zala.* Gotzaiñak orduan: *Baiña zuk ba-zenkian españera?- Bai, jauna; jakin bai, baiña ez neban erabilli bearrik izan; EUSKEREA IZAN ZAN NAIKO.*

Gotzaiñak zer erantzunik ez. Baiña ordutik aurrera orain egoan goterkitik idazten eustanean, BETI zeozer EUSKERAZ jartzen eustan. Geyenetan auxe: JAUNGOIKOAK BEDEINKA ZAIZALA. Bear ba'da ez eban geyagorik jakingo; baiña orrek agertzen dau, bere lenagoko okerra ikusi-edo ebala. Ikusi ta ikasi. Eta orrela beste askok be.

B) Euskerea Maitatu, baiña euskerea oker erabilli daben eleiz-gizonak

Eleiz-gizon askok euskera oker eta ustela erabilli dabela? Bai-edo; baiña ez eleiztar ziralako, giza-bidez gizartekoak ziralako baiño. Eleiza-bidez ibilli izan ba'ziran euskerea landuko eben *(Ad Gentes, 26)*; baiña giza-bidez erderea bakarrik erabilli eben euren ikastaroan, eta gauzak ulertu ta azaltzeko ERDERAZ OLDOZTU ta erdel-bideak artu. Ez eben iñoiz entzun zelan azaldu EUSKERAZ Jaungoikoak goitik emandako eskarra (GOI-ESKARRA) eta erderaz erabilten eben itza euskeraz jarri. GRASIA. Axularrek beintzat *GARAZIA* idatzi eban. Ez euken oiturarik, ez ekien gai orrek euskeraz jartzen, ERDERAZ ikasi ebezelako. Aor eleiz-gizon orren utsa. Ez egozan ezita, ez egozan irakatsita euskeraz irakasteko.

Eleiz-gizon areik erdel-kutsua euken; baiña euzkel-mamia ta euzko-izakerea; gaurko idazle askok barriz erdel-kutsua ta erdel-mamiña. Orixe da gaur daukagun idazkera negargarria. Eleiz-gizonak garala naiz ez garala gure euskera au landu ta edertu bear dogu. Orretarako «Ibar» Abeak erakutsi euskun bide egoki-egoki bat bere «GENIO Y LENGUA» idaztian. Arek an diñoskun barrizte-egitaraua jartzen eta jarraitzen ba'dogu, euskereari zor yakon batasun eta aunditasuna emongo dautsagu.

Eleiz-gizon garala naiz ez garala, euskera egiz maitatuz eta Eleizearen irakaspenak jarraituz lanera jartzen ba'gara, EUSKAREAK BURUA JASOKO DAU, beste eleiz-gizon deun eta jakintsu batek esan euskunez. Ez aztu, baiña, eleiz-gizon deun orrek (Kardaberaz Abeak) esan zituan beste itz auek: «*Jaungoikoaren borondate jakiña da aren fede ta legeko misterio ezkutatu ta dotriña zabaltzeko bear dana, sacerdote jaunen ministerio sakradulen EUSKERAZ BAIZIK emen egin ta esan bear ez dala*». EUSKERAZ BAIZIK, diño. Aor gure elburua. Noiz lortuko-ete?

URRUTIA'TAR GOTZON M.B.S.

AZKARRAGA'TAR PELI'RI

Agur adiskide, GOIZ-ARGI'n egin dozun galdereari erantzuten natorkizu, al dodan neurrian beintzat.

Zuk entzundako zurrumurruak ez dira putz-utsezkoak izan, ez: idazkia edo idazkiak egin izan dira. AGUR au ixil-arazteko «chantaje» itxurako alegiñak be egin dira; orain arte alperrikoak izan arren, ez dogu uste azkenengoak izango diranik.

Satorrak salatu ta zuloetatik argitara atera genduzalako, naiko zalaparta egin eben erderazko euren lagunen izparringietan. Baiña, zu lasai adiskide, «zensuradun botoak» eta antzeko jauntxokeriak, zirkin txikerra eragiten dauste.

Agur, Peli. Besarkatzen zaitu.

ARENAZA'TAR JOSU'K

LOIOLA'KO IKASTAROA

Igaz bezela Loyola'n Jesuiten Etxe Nagusian, Dagonillaren l'tik (illunabarrez) 12'ra. Ikastaro-ordaiña irekia dago.

Igaz bezela, matrikula 1.000 pezeta da, ta EDILI'n, Getari, 21. DONOSTI, Utkña.: 413282, izena emateko unean ordaintzekoa eskuz esku edo jiro postalez.

BEAR BEARREZKOA. Aldez aurretik Edili'n matrikulatu bear da.

OSTATUA

Oerako erropa zuria, bakoitzak berea eraman bear du.

Lo, Jesuiten Etxe Nagusian; eguneko 20 pezeta ordaindu bear da.

Otorduak Amenabar'en egingo dira. Gosaria 10,— pezta, Bazkaria 70,— pezta ta Afaria 70,— pezta. Ostatu osoa 30 duro.

Ostaturako ez da txartelik izango; jatordu bakoitzeko ordaiña bertakoak jasoko dute.

EGITARAU, PROGRAMA GISA

Kataluiña ta emengo irakasleen zuzendari Erramun Fuster Rabes Jauna izango da, ta irakasle abek aukeratu ditugu:

MATEMATIKA BERRIA.—Maria Rubies Anderea.

ESKU LANAK.—Ez dakigu bere izena oraindik.

DANTZA TA RITMOA.—Mariona Cortes.

AOZKO ADIERAZPENAK. — Carmen Aymerich Anderea.

AURRENTZAKO MARRAZKIAK. — Rosa Gratacós Anderea.

OIÑARRI-EZIKERA LEGE BERRIAREN SAIOAK ETA ALDERDI-JARRAIBIDEAK AUR-IKASTOLETAN.—On Ramon Fuster Rabes Jauna.

ARTEA (gaurko eskulturan eta azalpen bat).

AURREN SIKOLOJIA.—A. Goena'k.

EUSKAL ABESTIAK.—Benito Lerchundi'k.

OLERKI AUTATUAK.—Juan Maria Lecuona'k.

EUSKERA JOLAS BIDEZ.—Yon Oñatibia'k.

BI ERANTZULEAK

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

POZAK ETA KEZKAK

Eibar'en, umeen lenengo Jaunartzea zala-ta, parroko jaunaren deira gurasoak batzar batera joan ziran. Batzarra asi barria zalarik, biotzez erdelduna dan emakme bat jagi-zan eta: Y los que no queremos que nuestros niños hagan la primera Comunión, qué debemos hacer? Abadeak, orduan, lasai ta irri-barreze «No venir a esta reunión». Baiña, bada ta badan, an be sartu ta kezkea sortu! Erderazko esaereak diñoan lez: «Dios los cría y ellos se juntan»!

* * *

Zer jazotzen da Eibar aldean, oraingoan? Zeruko-Argia'n irakurtzen danez, «Oskorri» taldekoen abestiak ez dira danentzat atsegiñak izan. Guk, «aspaldiko integristok» olakoak idaztea, tira! baiña aurreruntz norek ariñagotan dabiltzan orretariko batek esatea!... Jatorriz errizaletasun pixkat izan dogunontzat, olako abeslari ta «poeten» abesti ta olerkiak (?), iruntsi eziñekoak izaten dira... ez dira euskaldunak ezta euskerazaleak be! Baiña norbaitek idiki dautsez ateak; nortzuk ete? Noren erruz sartu dira gureartean euskal soiñekoekin apaindutako sasi-errizaleak? Ez ete-dozue danok «h» ikur berbera lorrinpeko batasunean, eta gero, «kamaleoiak» lez margoz aldatu —orretan be experientzia izan bear— egun argian?

* * *

Orain, «trula la»k gaiztoak, eta orain bi urte beste «h» dun batzuk jaieri boikatu euskal-jaieri atan be, —ez besteeri—, euskaltzaleegiak ziralako. Batak eta besteak, elburu bakar bat, jaiak ondatu!

* * *

Bizkai'ko beste aldizkari baten —atxuz! —, garagarraka dabillen asto batek euskerantoz «eskribitutakoak» ulertuko ditun kristaurik ez dagola esango genduke. Dana dala, Montiano ta Urkijo jaunengaitik betiko tentelkeriak botaten ditu, Peña ta Etxenagusi euskal-jakintsuak azturik. Gure ustez, errezago izango litzakio «samoyedozko edo guanizko» iztegiak osotzea, bere euskerantozko lanak ulertu erazotea baiño! Porron-pontan abestu —edo kantatu, nai ba'du— bear leuken «botijeroa» dozu-ta... eta botijeroak...

PIPER-ZIRI

GAZTE

ADAR JOTZAILLEAK

Ene ustez, erri bakoitzean izango dira noski, bi, bost edo amabost gizon era ortako «eginkizunak» lortzen dituztenak. Nik, oietako bat bereziki ezagutzen dut.

Bere ofizio edo langintza, adar jotzea dela, adierazten du bein baiño geiagotan. Esan liteke gaiñera, atsegin zaiola benetan adar jotzalle sonatua izatea.

Bear bada, ondo ordaintzen dan langitza izango da orixe. Litekena da baita ere, ikusirik inguruan «orrelakoak» asko dirala, ta gaiñera egunetik egunera ugaritzen ari dirala, ikastola batzuk ortarako prestatuak egotea; jendea al dan egokitasunez jantzi eta tajutzeko asmoakin.

Dena dela, barkatu bedi irakurle zintzoak, ezin agertu emen, nik ezagutzen duten orren izenik. Ain zuzen, ez zait neri atsegin era ortako gizonen zabalkunderik egitea. Ba-dira, izan ere ala-bearrez, bere inguruan ortan alegintzen diranak.

Esanak esan da gero, komeni litzake noski jakitea zer dan adar jotzaille izatea. Nere ezagun orrek, askotan jo du bere burua adar-jotzaille bezela, eta bere lanak agertu ta ikusirik, esan genezake gutxi gorabera, «oien» izakera nolakoa dan. Ona emen beraz, «oietako batzuk:

Jendea mogi arazten dute; berak ordea, ezer arrixkatu gabe. Zaarrak lurperatzen alegintzen dira; antziñako oiturak ordea, darabilkite nunbait une auetan. Kristo'tzaz itz egin, kristauak zapalduaz, eleiza baztertu, baiñan beraren babesean antolatu nai dituzte, zenbait billera eta itzaldi, abertzale bezela agertu, marxista izanik. Berebil bat artu, purua erreaz, ostikoketa, pelota partidua ikusi eta dantza lekuan dabiltzan proletarioak dira. Itz bitan amaitzeko. Ustez itz garbiakin, jendea nastu eta naskatzen ari direnak.

Beragaitik, erne ibilli bearra daukagu. Oien teoriak eta itz politak uxatzeko; Belarrian daukagun zulo batetik sartutzen dan bezelaxe, alegindu bear degu beste zulotik iges egin dezaten.

Bukatzeko, eskaera labur bat egingo nioteke, ene adar-zaleei. Eskatzea ba'da beiñepin, gurea danari, Euskalerriari, begirune geiago izatea.

Ba-dezutela alegia, adarrak zezenentzako utzi eta beste tokataren bat jotzeko garaia.

RAMON ZAPIRAIN

arrokeri eskasa

Lenengo esan gura dotena auxe da: arrokeriagaz ez dagola ezer, ta gitxiago beragaz utsean.

Sarritan ikusten dira kaletatik euren lepokibitza ipiñirik, okotza kokota baiño gorago altzeuta zeozer diralakoan dabiltzanak; arrokeri eskasa da ori!

Beste batzuen arrokeria, onelakoa da: euren lagunakaz alkarturik eta itz politak esanaz, euren lagun orreik etsi eragitera jokatzen dabenak, arrokeri eskasa da ori be.

Beste batzuena olakoa da: alkarrekin besteari olango gauzak esaten; «zuk ori onetara egin bear zendun. Nik egin izan ba'nendun, bestera egingo neban. Zuk ez dozu ezer egiten ez zeutzaz ez zure arerioentzaz ez zeure erriaren aldez, ez ezetzaz». Orrek diñoezan orreri, galdera au egiten ba'dautset: «Zeuk zer egiten dozu ba?» Auxe diño; «Ni neu alegintzen naiz». Ori da orren arrokeri guztia.

Alegintzea gauza ederra da, baiña alegiñ utsaren izenean bizi izatea ez dot uste naikoa danik; Aurpegia emon bear dan lekuan, lepoa emotea ez dot uste ba alegintzea danik, ta zoritxarrez gaur egunean olako asko egiten da gure gizartean.

Bederatzi oinkada emon bear diranean bi bakarrik emonda ez dago ezer egiterik, oinkadak emon egin bear dira, ta seigarrenean goazela, bi edo iru atzerantza emon eragiten ba'dauzkue ez da ikeratuta geratu bear, barriz aurrera jokatu baiño.

ETA IRRATIAK ZER

Asko ta gauza onak entzuten doguz irratietatik, baiña zoritxarrez, entzute guztiok edo geienok beste izkuntza batzuetan egiñak dira.

Orain galdetzen dot; zer dala ta ori? Euskera izkuntzea eztakielako, lotsatu egiten direlako ala eskubiderik emoten eztelako; Oso entzungarria izango litzake gure erriaren aldeko barriak euskeraz emotea baita beste lan batzuek egitea ere.

Orain denpora asko eztala, geure arteko lagun batzuk arazo onetzaz alkar izketan. Eztabaida onetan, gauza bat agertu zan, auxe da: Ederto egongo litekela ordu-erdi euskera emotea egunero, izkuntzea irakasten lan orduetatik kanpora, etxera etortzen diranentzako, baita geixorik etxean geratuta diranentzako ere, ta zergaitik ez etxeko andereentzat be.

Beste batek esana auxe da; bere aitona berbiztu egiten dala irratitik euskeraz entzukeran.

Orain eskatzen doguna da, zergaitik alegindu ez apur bat erriko gizonak pozik eukitera eguneko barrietan euren izkuntzan itz eginda? batez ere irratian dan lan orretan euskalduna dana izan ezkero? Orain, zeozer esaten asi nazan zekero, esan bear dot abesti asko entzunik, ez doguzela euskeraz orren beste entzuten ta, sarritan, entzuten doguzanean bardin antzekoak izaten dirala; erakutsi daiogun ba erriari, daukaguna; erri ontako gizonak barrionak euran izkuntzan emoteko eske daukaguz-ta.

Nere ustez, erriari berak eskatzen dauana emon bear yako, bestela erriaren aurka jokatzea da.

LANDALUZE'TAR JOSEBA

CASCO VIEJO

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

TENDERIA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

KONTU KONTARI

LORRATZAK?

Jardun batek beste bat ekarten dabela esan oi da: Zu, «Abeletxe»; Egunkaria kaleratzeko darabizuezan asmoeri, ondo deritxoet. Baiña berandutxo ete zabiltzaten susmotxoa dot. ¿Ez al dakizue, erdal egunkari barri bat ateratzekotan dirala norbaitzuk, Bilbo'n?

—Bilbo'n?

—Bai!

—Beno... baiña, zer dau zer ikusi erdal-egunkariak, euskal-egunkariarekin?

—Parkatu. Esan nai nebana zan, erdal-egunkari orrek, Euskal Atala ekarriko dabela egunero. Ta ori, iñok emondako arrolio upelik bage.

—Parkatu zeuk be. Ez nekian orretzaz ezertxo. Ala ta be, guk, geure asmoetan jarraituko dogu, bearreko deritxoguna lortu arte. Izpar ori gogo onez emoten daustazula uste dodanez: Eskerrik asko. Baiña esan dagitzudan, ez naizela arritzen; len be izan genitun bi egunkari Euskal Atala ekarten ebenak. Orraitio auxe be esan bear dautzut: Arrolio upelik bage egingo dabiela diñostazun ezkero, nundik atarako dabe dirua?

—Orretan nabil; ziur-ziur jakin arte ez dautzut esango. Lorratz sendoak ikusi daroadaz eta euren atzetik nabil. Lorratzok, erraldoiren baten leiza-zulora eroan eta bertan garbitzen ezpanabe, esango dautzut.

—Kontuz adiskide! Eskerrik asko barriro be.

—Agur!

—Ori, ori! Geu be, ori gaituk, ¡AGUR!

ABELETXE

JUN ETA JULI

Jun Batiz eta Juli Galdaras, Mugartegi, gaur izene daukan kalien bizi zien. Ume bako andra-gizonak. Bera, arotza, ortulaue; eta gure Juli Galdaras'ek, jakiña, ume bako etxien, denpora naxaixen euki eban erie ta denporie txarrixe, beixe ta bai txakurre be asi ta zaintzeko.

Domekero ta jaiero, illuntzien, Jun Batis joaten zan etxera bere begixok apur-apur bat txispeaute... Bere kuartilloko pitxarrari ardau ostera batzuk egiñez, bere ezpan sikuetan: «Domekie da... ta!

Len be iñoz esa'otzuet. Geu beintzet umetan okerrak izen garela, ta oiñ be lotsatu barik diñotzuet. Jun Batis'en solora juen, ta an izate'zien gure joko ta ibillerak... Arbolara igon, babak eta iderrak astiñdu, sagarrak ostu da jan trankill. Zenbat olako Jun Batiz gisajuai egindukuek gitzen.

Olako baten, iru edo lau ume, Jun Batis etorrela ikusi eran, baba saillean sartu, ta gure buruok eskutau eziñik gabiltzezan. An dator gure Jun Batis, bere zigarro prixtixa ezpanetan. Mar-mar, mor-mor... ernegaute, betiko moduz. Gure buru koxkorrak ikusi eran, aren erretolikie ezan makala. Neuk uste dot, aren pentzamentu izen zala, orduen beintzet, geu gitzezala guardasol-konpontzaille edo txorrostaillen batzuk, bere erdera geiztuen esate'ban ba:

—Erre-kristo ke la pundó! Brigen de la Pillar, si babas kerer komer... kompar...!

Oixe esan, eta bere akulu zorrotzaz an dator baba saillera.

Bai, ez nekez gure erpe-jorra. Xemein kanpusanto ostetik, Xemeiñ gaiña, eta andik Elkorre'ko piñarire...

Beste baten, Jun Batis neska-zar baten bentana-petik pasau eran, entzun dau neska-zarraren eskatzeko rradixotik diñuela:

—Aki, Radio San Sebastian...!

—Konde, konde, onek neska-zar madarikatuonek oiñ be or jaukok gizonen bat, erdelduna ganera...!

Juli Galdaras be bazan bat, bai. Neskamutill gazte kontuek entzuteko beti prest. Ibilliko zan Kusgau, Notarixa atetan. Testamentu, alkarpo-dere, saldu-erosirik ba'zan, kasorik pez! Baiña, ezkontza kontratue ba'zan...

—I, ikusi'ok Pulanok zaleko andra ederra daroien...?

—Bai. Zer ba? Bera be gizon ederra da, ta ondo merezixe dau olako lagune.

—Ixillik egonari! Orrentzat naikue ta larregi...! Amar ume emongo'tzez orrek, bai orixe, amar ume...!

Juli'k umerik ez, eta zelan dizen munduko gauzak. Beti bere buruz atako'ban, ezkontza autuetan, ume kontue...

Jun Batis eta Juli Galdaras, andra-gizon batuek, euren moduz poz-pozik, eta zaparrada aundi barik juen ziren.

Gaur, nere AGUR zuontzat Juli, Juan Bautista... Laster arte, alkartugo'ga ba askar Joxapat'en zelaixen.

J. J. ARRIZABALAGA «MARKIÑA»



GU, EMAKUMEOTZAZ ARDURATU LEGIKEN BANKU BAT?

Bai, ba-da bai, gu, emakumeotzaz be arduraturiko Banku ori. Bere laguntza ta adizkidetasunik onenak, gure kezkak arindu naian, eskeintzen dauskuzan Bankua.

BANCO DE BILBAO

onek, emakumeen eskubideak onarten ditu.

Autorizado por el Banco de España

KIROLAK

euskal bazterrak

Esan gintzake, euzko lurra ongien ezagutzen dabenak geyen baten, pizkat adiñean goratuta dagozan mendigoizaleak dirala. Jakiña, orrek ez dau esan nai euzko gaztean ez-dirala Euskalerria barruz eta azalez ondo obeto ezagutzen dabenak, bat baiño geyago, bai orixe! Leen, baiña, mendiak zein gure lurraldeko bazterrak ikusi ta pizkat ezagutuko ba-ziran, bultziz, oiñez edo gerotxuago txirringutzez ibilli bear izaten genduan bide zati andietan gure ikusegarria asetuko ba'gendun. Aldi onetan, danok dakigun lez, besterik da, gaurko egunean, berebilla ugaritu da, edozeiñek dauko tresna ori ta, beraz, edozein bazterretara eldu leiteke neke andi barik, bertatik edozein mendi ta inguruan diran ikusgarri guztiak edo geyenak, garrantzitsuenak, arakatuteko.

Ba-dira orraitiño, erreztasun egoki orreik euren eskuetan izan arrik, mendi gaillurrean mendi-txartela itxita, inguru artako jakingarriakaz arduratu barik alde egiten dabenak, baiña, gaur ez gatoz idazlantxu au orreitzaz gertuten, zerbait jakin nai-dabenai gure Erri maitagarri onen alderdi batzuk gogoratuazoten baiño.

Orain, udaldian, sendi-zale edo lagun-arteko dan mendigoizaleak, bere berebil jabe danak batezbere, txango polit atsegingarriak egin leitekez, leenago egun baten egin ezin litzakezan, edo gaitz ziran alderdi aunitzetara; esate baterako: Bizkai'tik doyazanentzat txango polit bat, Orozko, Altube-gaiña edo Orduña zear Izarra, Zubijana (Zubigana) eta Pobes, baiña aurretik geldiune bat eginda Tetxa (Atetxa, Arteatxa, bat edo beste izan leiteke bere, jatorrizko izena) aitzarte ikusgarriari begiratu bat egiteko. Pobes'etik Espexo'rako bidearen gaiñean, alderdi bietara doguz ikusbegi onak dabezan mendiak, eskumarantz Atalaya izenaz ezagutzen dana (ezin jakin izan bere jatorrizko izena), bitxabal gaiñetik iru ordulauren baiño lenago igon leitekena, naita bide garbirik izan ez alde orreitan. Eta, zeker aldera, Somo edo Samo; bitxabalez Yera ta Arreo errizkara elduaz laster baten gaillur artara igoteko. Mendi bi orreik bederatzireun neurkin ta geiago goiti dabe.

Mendi orreitatik jatsi ta bitxabalari jarraituaz Añana'ko Gatzaga'etan aurkituko gara eta, ezaugarri yaku Araba'ko, ta beraz Euskalerri'ko, txinditza-arazo bat dogulako erri onek daben au. Eskerrak erri onek goialdetxuan daben iturburu gaziari (euneko ogeitik gora dau gatza), irurogei ta bi sendik irabaspide ederrak dabez. Sendi orrein artean bananduta bost milla gatz-leku, larrain, dabez. Minituko eun eta berrogei tonelada litro ur jaurtiten dauz iturburu orrek eta urtean bata-bestez, lau milloi ta erdi tonelada gatz artuten dabez, zelango eguraldia dan, gitxiago edo geyago. Laterrian danik gatzik onena ta beraz garestien saltzen dana.

Añana'ko Gatzaga'etan gatza zelan egiten daben eta beste zerbait geyago jakin nai ez-badogu, jarraitu daigun Espexo'tik Angosto'ko Ama Neskutsa aurkitzen dan arrune baketsura eta, Ama Neskutsa argitaldu zan aitzzulo ta txadontxu apaiña ikusten doguzan bitartean, aldi osasungarri ta benetako gentzatsu batzuk igaroko doguz, gero Osma ta Orduña zear aize osasungarriz aizetuta etxera itzuli.



Dana dala, baiña beti berak lenengo igon bear izaten dau Gorbeia'ko tontorrera!

GORBEYA'N

Bagilla'ren azkenengo igandean, Gorbea'ko gaillurrean, gurutzearen inguruan mendigoizale bilkera ikusgarri bat egin zan, Baskonia mendizale bazkunak Ganguren, Padura, Edesa ta Osea taldeen laguntzaz eralduta. Txango ori zala-ta, gaillur ortan bertan ospatu eben euskerazko jaupa eder bat, bertaratu zan mendi-zaletza ikusgarriaren itzalik andienaz. Tamalez gu ezin bertaratu izan giñan, baiña adizkide onak esan dauskuenez, giro alai ta euzko-kutsu goralgarria izan zan mendi maitegarri (bizkaitarrontzat beintzat) ortan igande orretan bertan zuzmetan zana... Orretara izan-be izan bear dau euzko mendigoizalean artean-eta.

ALTUNA'TAR JOSU

idazleeri oarra!

Idazle askoren eskutitzak artzen doguz euren lanak argitaratzen ez diranean. Errez mindutzen gara euskal-idazleok! Baiña, arren, gure aldizkariak bere neurriak ditu, ta ez beti lan guztiak argitaratzeko erarik izaten. Beraz, lasaitu zaiteze, ta jarrai bialtzen. Laguntasun aundia litzake gutzat, makiñaz lerro bira eta ber-idatzita edo kopiagaz bidaliko ba'zeunskiguz, orraztuta ta al danik garbien. Ezin ba'zenduke, bialdu zeure aukeran, emen jarriko ditugu makiñaz, naizta uzta aundia izan eta langilleak urri!

Iñoiz, batzorde onek lanen bat onartuko ez ba'lu, berealaxe itzuliko leuskizu. Beste alde batetik, lanpeturik gabiltz, eta ezin izaten dogu banan-banan danori erantzun, ea ba... al dozuen neurrian lagundu alde guztietatik, AGUR danorena da-ta, bialdu baita zuen lanok, eta ez kezkatu, bakoitza bere arloan jakingarriak idazten dituzue-ta, ta, gaizki esanak parkatu.

IDAZLE-BATZORDEAK

oporraldiak gernika'n

Aurtengo oporraldiak nun igaro ez genkiela geunden. Noruntz joan? Atzerriruntz, ala inguruko erriren batera? Ba-daude nun ederki ebilli ta toki politak Euskal-Errian! Azkenik, ongi oldoztu ondoren, alkarri esan genion: Goazen Gernika'ra!

Ez ditut nere bizi guzian amabost egun ederragorik igaro. Zertarako ebilli berebillean, baldin uste gutxienean, jo bazterra edo beste berebilleren bat, eta azken arnasa emen...?

Orregatik, aurtengo gure oporraldiak lasai ta patxaran igaro ditugu. Bultzian joan, Gernika'n artu zere gela ostatu etxean, ta ikusi bazter guziak, nola errian, ala inguruetako errietan.

Lenengo gure irteera Bermio'ra izan zan. Bermio beti izan da erri ederra, batez ere bertako arraintzale ta itxas ontzietan. Gu joan giñan egunean, orain egun gutxi, lebatz eta bixiguak salgai zeuden kai aldean. Ezin ukatu, iñon baiño preskoago dirala. Bermiotarren arraiak ez daukate beste izotz arteko arraien antzik. Eguneroko arrainketak eltzen bai dira bertara.

Illuntzean berriro Gernika'ra. Ostatuan apaldu ta gauerdian lotara. Gero, urrengo egunean Lekeitio'ra joan giñan. Zer esanik ez, nolako erri polita dan. Nere aita izanak, Madrid txiki deitzen zion Lekeitio'ri. Aurrez, bere ugarte Karrazpio, urertzean ondartza bi, faro bidea ikuspegi ederrekin, ta batez ere, bertako arraintzale on eta jatorrak.

Bai azkar ikusi ta deadar egin ere, nere aspaldiko lagun Kosme Goitiz jatorrak! Besarkadak eta gero, alkarrekin igaro arratsalde guzia. Kosme onekin, besteen artean, joana naiz ontzi txiki batean Ameriketa'raiño. Aurreko idazlan batean zerbait esan nun.

Illunabarrean, berriro Gernika'ra. Beste egunean, Ibarrangelu'ra, an dagon Karmelo Abadia ikustera. Aspaldiko laguna bai da bera, an Ameriketa'n ezagutua. Esan geinke, alde abek amerikanoz beteak daudela. Batzuk zaartu ondoren or bizi diranak, besteak, gazteagoak, dirutzak egin Ameriketa'n eta orain beren jauregietan ederki bizi diranak.

Urrengo egun batean, Mundaka'ra joan giñan. Urteak ziran or izan ez nintzala, ta ango bizpairu sendi agurtu ez nituala. Gondra, Pedro R. Loizaga ta abar. An alkartu giñan eta biotz barrenak alako tinka ematen zigun, alkarri aspaldiko zer esanak miaztuaz. Pentza, 34 urte ondoren alkar ikustean... ze nolako alaitasuna nabaitzen gendun...!

Lenengo aste osoa olantxe, batera ta bestera, beti Gernika'ra itzuliaz. Beste aste osoan Laida'ko ondartzan busti aldiak artzera ta eguzkiaren dizdiraz soin guzia beltzera.

Asi Gernika'tik eta Bermio'ra arte, ez gendun Euskera besterik entzuten. Gu giputzok, ederki ulertzen gendun, ta askotan guk ere bai itzegin bizkaitarrez. «Berba, prakak, lantzean-bein» ta olako itz goxo oiek entzutea, poz atsegin zitzaigun. Gernika'tik Bermio'rako bultziko txartel zaiak ere Euskeraz berba egiten zigun. An etzan erderarik ia entzuten. Ortan, gu giputzok baiñon yayuago dira.

Azkenik, Gernika'ko Illobitegi'ra, Kanpo-Santura joan giñan. An dauden gudarieri otoitz egitera. Egun gogoangarri ura gertatu zanean, an bai geunden...!

Amabost egun egin ondoren, berriro gere Donosti'ra irten gendun, gelditzen zaizkigun egunak, oporraldiak, emengo ondartzan igarotzeko. Beraz iñork joan nai ba'du uda aldia ongi igarotzera, joan beza bazter oietara. An ez da besterik entzuten, Euskera ta txorien kantua.

E. OZKIN

KARMEL

Aurtengo bigarren alea eskuartean dogu. Atzo bertan jaso gendun. Iru illabetetik bein agertzen da, ta bata irakurri orduko urrengoaren zain.

Oindiño azaletik besterik ez dogu arakatu, baiña laster ikusten da beti lez mardula ta jakingarria datorrela. Danetariko lanak daukazuz, Ikasigarriak, amesgarriak eta aztertubearrekoak:

Olerkiak; gitxi baiña dotoreak.

Gogo kezkak; ontan ekiñean Goiria ta Intza aitak.

Jakingarria; Astarloa, Arraiñak eta arrain olak, Laratza, Dantzak.

Ipuiñak; ala ta be sakonak, Etxeberria, Urrestarazu, Zubikarai.

Gazte-arazoa; Olerki geienak eta Baraizarra.

Ta guztiorren lokarri, eragille ta bultzari, Onaindia aita bera.

Ia eun orri, argi, eder, bete ta garbi. Ikuntza erreza, izkuntza gorenengoa, Euskerea bera, edozeiñek irakurtekoa, ta Euskal-Erri osoan erabilten dana. Euskeraz dakianak au irakurten be ba-daki, ez da emen «barririk» asmetan iñor ibilli. Euskaldunen, Euskal-Erri'ko EUSKEREA dozu emen jangarri.

Ta eun lauerleko... urtekoa! Ta neurri bardiñeko aleak, irakurri ondoren zure liburutegirako apaingarri, errez eskuratzeko eran eta, bear danean, billaketak eta azterketak egiteko lagun biribilla.

Zorionak, Santi aita!

UBITZA

ordua da-ta

Urte batzuk lenago, ezin geinkean olakorik idatzi. Ba-zirudian edestiak eta ordurarte egin-esandakoak ez euskuela arrazoirik emongo. Gizonak eta batez ere kristauak, sekulako ametsez ebiltzan aurrerantzerako. Ludi guztia iruntsi bearrez, besarkada batez illargia bera ere oratu bear leukeelakoan. Etxe-barruko arazoak, auziak eta zeregiñak, aitatu ere ezin leitekezan: alako oben larririk!

Mundu zabala aurrean euki ta gu etxe zulo galgarri biurtuta! Utikan olakorik! Ibilbide guztiak gure dira ta ezin egon geintekez leku batean geldi, alper garbiak eginda. Geiago, gero ta geiago bear dau gugandik munduak, eleizeak eta gizadiak: goazen lagun urkoaren billa azken bazterreraiño, geiago eziñeraiño. Gizartea ere orretara dabil-eta, goazen guztiok lenbaitlen bat egitera. Ta, jakiña, itxi dagiguzan etxe-inguruko atazok. Ta?

Egia, guk nai ta nai ez, ludiak eta gizadiak aurrera ta aurrera dagie eten gabe. Ez dago gelditzerik, eta are gitxiago geldi egoterik. Goazen alkarren leian. Zeren billa, zeren atzetik, baiña? Egia, ostera ere, ez dago gelditzerik ezta geldi egoterik ere.

Zorionez. Gero ta batuago ludi guztiko biztanleak, gero ta bilduago, gero ta urbillago, gero ta anaiago. Eguratsean zear ez ezik, lur-barnean ere abiatu da gizona sekulako indarrez eta onturrez. Zorionez, ala ere. Alkarren ezagun, ez ezik, alkarren lagun eta etxagun ere egingo al gara, Jaungoikoa lagun. Baiña... Gorantzako bide orretan ez dagiela itxi oiñak, lurrari ikutzeari... Ez joan zororik izarren atzetik, ankak aidean zintzillik, dantzaka ta zabuka... lurrari ostikoka. Izarrak oratu, bai, ta lurra, lurraren autsa ere oinpetu oinpean artu, neurriz, gozoro, atsegiñez eta etekiñez. Ez arrotu larregi beeko auts au, bestela begiak lausotu egingo dauskuz-eta.

Gaurko zurrunbilloaren erdian, euskarri bat beti eskumenean eukiteko; oragarri bat beti urrean gordetzeko; gordegarri bat beti ondo-ondoan nabaitzeko, orra lekuan lekuko bizitza, bizitokia ta bizikerea. Bejondaiela urrutietara misiogiñan, dei bat betetzen, egiaren eta kristau ta gizatasunaren mandatari doazanai. Urte askoan!

Alabaiña, etxean geldituak ba-dabe oraindik zeregiña, zeri ekiña. Gurpillak obo andiagoa ba'du ere, daroan abiadea ederragoa ba'da ere, edo andiago ta ederragoa dan neurrian, barneko lokarri ezkutuak len baiño sendoagoak bear ditu, zabalkeran eta ibilkeran utsik egingo ez ba'dau. Urrutira joandakoak zeri oratu, zertatik elikatu, ta barruan geldituak zeri ekin, zegaz ats mesede egin dukete.

Goren maillara eldu diranak, edo agirikoan dan maillara eldutakoak, berengoak uts egiten ba'dabe, eurenak eta gureak egin dau.

Naikoa da baiña ipuin, alegi ta itzulingururik. Zeatz eta latz, bear ba'da, esanda... urrutietarakoak eta bertorakoak ba-dogula zer egin ta zeri eutsi. Munduaren zabala, eginbearraren itzala ta eginbakoaren tamala!

Ordua da-ta, ekin dagiogun lanari arin bai arin. Munduaren garria inguratzen dauan alkartze-katea apurtu ta eten ez daiten, gitxien uste dan lekutik autsi ez daiten oratu begio bakoitzak bere tokiari, kateko bere ereztunari. Bestela, porrot egin leikee aurrelari dabiltzanak.

Munduaren zabala, ekin bearraren yaukala! Or ekintza-gaia edonorentzat, ederra benetan. Batetik bestera dabillen gizon aspergaitz ta neke-errezak, bearko dau edozein ordutan nun atseden, nun arnasa artu ta nun gogoa oretu ta adoretu. Naiz kanpokoentzat, naiz etxekoentzat, bearrezkoa deritzagu ekintza au, tokian tokikoa.

Teknika andia sortzen ari da, egunetik egunera bikaiñago, egunetik egunera ezinbestekoagoa. Teknika au sortzen eta anditzen dan giñoan baiña, barruarentzat, gogoarentzat, gizonarentzat —soin-gogoa baita gizona— ezinbestezkoa ere egiten da arnas-bide bat artzea, barruko gozagarri, aberasgarri ta indargarri bat sortzea. Orra gure ordua etorria, egin daigun gure errian, naiz gure etxekoentzat, naiz iñorenekoentzat atseden-toki, aberastoki, babestoki bat. Bestela munduaren bide zabalegi orretan, biurgune larri orreitan, gure nortasuna ito, birrindu leiteke-ta.

Panteismoagaz gertaurikoa: Jainkoa ainbat lekutan ipiñi ta azkenean iñun arkitu ezin. Unibersalismoa ere ain zabal egin eta atalak alkartzeko eretirik eta lokarririk arkitu ez. Orra unibersalismoaren neurria ta zabalerea, bere osoan zati bakoitzak osotua ta osatua.

«Premiñazkoa dogu gizarte-sarea konpondu ta osatu, kalez-kale, auzorik auzo, edo aldra andiagotan ere, gizonak bere norizatearen bearrizanak bete al izan dagiazan. Interes eta kultura-batzokiak sortu bear dira, parroki ta laguntaldeen barruan. Bazkun-era askotakoak: jolas-biltzarrak, batzar-lekuak, gogo-jarduntokiak, lagunarteko biltokiak. Gaurko gizatalde andien urrutiratzeari itzuriaz, bakoitzak barriro anai-lokarriak sortu dagiazan». (VI Paul, Octogessima Adveniens: VI, 11-II).

Ibiñagabeitia'tar Andima zanak aspaldi amestua ta ezin lortua. Antza danez, ona ez da iñoiz elduko octogessima, ezta prior, ezta novissima, ezta Erroma'tik —edo urragotik— ere.

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANGEL

GOGORREAN

Bizitzea irakaslea da. Egizkoa atan bere. Ikastola orretan ikasi nai dabenak, bizitzako legeei jaramon eginda, aurrera egin al izango dau. Eta aurrera joatea be legea da. Guztia dago legez josita: gizonaren barrua, gizonen arteko artuemona, lurraren gora-berea, ertilarien bearra ta ume jaio-barriaren negarra. Lege orrek berezkoak dira, ta ixillik, egon arren, indar aundia dabe. Berezkoaren indarra ulertu nai dabenentzat.

Baiña lege bidezkoaren aurka, sarri, gizonen jokabide soratxak agertzen dira. Onek be euren sustraia ba-dabe nunbaiten. Itzez ez dabe esango, baiña egitez arrokeria, aundikeria, norberekeria, pilloka ibilliko dira alkartuta euren naikeriak egiteko. Jokabide orretan gozartuten dabe, iñor zapalduagaz geiago bear ba'da. Jokabide orrek, parra parra, ditu bere aldekoak.

Era ontan jokatzen dabenak, urko-laguna ilta, ondo egin edo mesedeak egiten dituela uste izango dabe. Au geuk ikusi doguna da, ta auxe berau Jesus'ek dirausku Barri Onean. Jokabide onek bere legea daroa; norbera ondo egotea. Ainbeste norberekeria gauza ederra ez da baiña, era orretan be, sarriegi jokatzen da gizartean. Bide ortatik doanak, jaunkeria maite dau, ta ondo egotea. Jokabide egizkoa ez da iñundik-iñora bere; gizontasunik or ez dago.

Gogorkeriak bere bideak ditu. Jakituria, indarra, diru almena norbereken larregizko ta bide-gabeagaz alkartuta, biziaren ertz guztiak artu nairik dabiltzaz. Asmo orrekaz dabillenak, ingurukoari, arin ikutuko dautso. Ta ez edozelan. Gizonak daben ezer ta aundienean, minkor, sastatuko dau. Bizitzaren biotz biotzean ikutu ta zaurituko dau.

Jokera orrek bizitza berberaren ondamendia dau elburu. Gogo gaizto orregaz ez dabe jokatuko, baiña, norberekeriak orretara daroaz. Norbereganako maitasun larregia zer biurria da; bizitzea okertu egin oi daroa ta askoren zorion bidea ausi, norberarentzako ederrean.

Bizitzaren sustraiaren aurka doa edozein eratako gogorkeria. Buruak eta biotzak itz egiten dabe. Onek biok doguz gure bizitzaren oiñarri. Edozeiñen buruak, norbere bizia zapalduta ikusikeran, karrazi egiten dau ta biotzak negar. Adimenak ikusi ta biotzak agindu, azkatasun guztiagaz egin bear dabe. Berezko eskubideen jagole, almen bi onek dira. Euron izateak gizonaren duintasun arrigarria aditzera damoskue. Laguna, zapaldua izateko jaioa, ez da.

Ta alan da guzti be, munduan zapalketa ta gogorkeria, minkor dabiltzaz. Gizonaren txarkeriak, beti ta beti, gogorkeriagaz jokatu izan dau urko-lagunaren aurka. Lenagoko gogorkerien aurka gaurko gizon asko, asarrez, jaiki dira. Gaiztakeri maltzurra ikusi dabe pentsakera ta jokabide ayer ortan. Gozina ondatzera daroena...

Gogorkeri gaiztoa, berezko maitasun legearen aurka doa. Ta gizonek ezin dabe, iñundik iñora be, ori onartu. Guztiontzat egiña dan lurrak, bakoitzari emon bear dautso bizitzarako bear dan poztasuna. Baiña gizona otso arrapatan biurtzen ba'da, gizonentzako, burudunak ots egin bear dabe euren jakitun ta indarrez gogorkeriari adarrak iñausteko.

Len, gogorkeria lagun gitxiren eskutik etorren. Ori dala-ta, jokabide ori naskagarriago biurtzen zan gizon zapaldu ta minduentzat. Gaur, gogorkeriak bide zabalagoak artu ditu, gaiztakeri a gizartetik kendu al izateko. Ta aurrekoak be, eurei ikutukeran, karrazi egiten dabe. Gogorkeriak ez dau izan bear gizartean gizonen bizi legea. Jakituri geiago gizadian sartuagaz batera, zuzentasun garbiagoa izan bear dau gizartean.

Ikasiaren argiak zalatu bear dau okerkeri guztia, ta ortan ari da gaurko mundua. Argiak ausiko dautsoz zezen-gogorkeriari adarrak.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Zoriona ta Zorigaitza

Bein Nagusi Gurenak arako Asko Ikasiari iardetsi:

—Zuek irakasten zertxo ederrik asko! Diozutenez, gizona eun urte bizi, eta arek okerrak eta ogenak erruz metatu izan, azkenean ua eriotza aurretik Iainkoarengana erruki eske agertzen ba'da, alakoa gaiztakeri guztien askespena lortuaz, betiko zorionera ioango.

Ostera, berriz, oker banaka batzuk arinkeriz soiñean daramazkiala iltzea ba'da, beti zoritxarreko izango dala.

—Zuen irakaspen ori zuzena dala uste al dezu?

—Zerorrek bestela uste al dezu?

—Eun oker eta gaiztakeri beltz, alakoxe banaka batzuk baiño ariñago ote?

—Iauna! Entzun: arri konkorra ur-axalean uzten dedala, ondora ioango, ala ua igari asiko?

—Zingora amilduko!

—Eta ala-ontzian eun arri konkor astun ipintzen ba'ditut, eta ur axalean alatxoa abitzen dalarik, ontzia ondora ioango?

—Alatxoak ur axalean albira egingo!

—Ortara, alatxoko eun arri konkor aundiak, arri koskorra baiño ariñago? Nagusi gurenak zer erantzun ezin asma al izan zuan. Eta Asko Ikasiak iardetsi:

—Gizonei beste orrenbeste gertatzen zaie! Okerren zamarik aundiena sorbaldan eta biotzean kiratsik txarrena duten gizonek, berek ezer ezin dutela-ta, guztia Iainkoagandik itxaroz, barru-barruko garbai zintzoz Arengana ba'doaz, alako aiek ez dira galduko.

Aitzitik, bein edo beste gaiztakerian murgildu izan dan gizonak, guztia ber-berak egin dezakela uste izanez Iainkoari ots-egin ez ba'dio, zoritxarra eta ageta beretzat izango.

Nagusi Gurenak esan:

—Nik, orain siñisten! Irakasten dezutena zuzena da!

ETXEBERRIA'TAR P., S. I.

BURUNDI

Burundi lur-aldea, Afrika'ko biotzean aurkitzen da. Bruselas, Belgica'ko urinagusian, jenozidioari buruz, Burundi'n gertatzen ari dana dala-ta, izpar garratz eta samiñgarriak jaso berriak dira. Esaten dutenez, 50.000'tik 100.000'ra, gutxi gora-beera giz-erailketa izan dirala. Ta au guzia gizaseme eta biotz-gogor batzuek, lagun-urkoari erasoaz menderatu nai dituztelako.

Mixiolari batek esan duanez, azkenengo egun auetan, 1.200 «Hutu», etsaipeko egiñak izan dira; ta ziur aski ia danak, tirokatuak. Belgica'ko flamenco ordezkari berezi batek, lur-alde ortan jaso dituan albisteak, esaten digutenez, 50.000'tik, 100.000 pertsona, gorrotoak eraginda, jenozidio aundi baten zamapean erori dira.

Burundi'k 27.860 Kmtro. biko zabalera, ta ia 4.000.000 biztanle dituan laterria dalarik, 50 dolarreko «per cápita» rekin, ludiko txiro ta beartsuenetako bat bezela azaltzen zaigu.

Burundi'k, Ruanda'rengandik azkatasuna iritxirik, urte batzuetan bere aginte «monarquico»'arekin jarraitu zuan. Gero leenengo «ministro» Michel Micombero'k republika aldarrikatu zuan.

Micombero bera. Tutsi tributarra da, ta Hutu'tarren aurka burrukatzen da. Alkarren artean bildurgarrizko odol-ixurtze ta eraso izugarriak izan dituzte. Geienok gauza garbirik ez dakigu; lur aietako gertakizunak ez ditugu ezagutzen-ta.

Hutu'tarrak, Tutsi'tarrak baiño biztanle geiago izanagatik; bigarrengoak leenengoak estutzen eta oiñperatzen dituzte.

Hutu'tarrentzat, burruka onen sustraia, T'Rwagasore aundikia erailtzean dago. Batzar-nagusian, Hutu'tarrak jabetasun geiena dutelarik, Tutsi'tarrak menderatzeko kemenik ez dute izan.

Mandatari-bereziak diotenez: Burundi'ko ilketen egille ta errudunak, Tutsi'tarrak bakarrik ez dira; Congo'ko lur-aldetik sartutako «Simba»tarrak ere, tartean izan.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

ERRIETAKO BARRIAK

Galdakano

ERREZENAK UTS

Igaro dogun Bagilleko azkenengo larunbatean, eusko giroko jai polit bat izan genduan erri onetako «Regio» izeneko igezleketako aretoan. Donosti'ko «Anexa» ballet-taldeak antzeztuta. Saio bi emon ebezan, bata arratsaldeko zazpi ta erdietan, ta bestea, gabeko amar ta erdietan. Ez dago esan bearrik, saio bi orreik ondo baiño obeto antzeztu edo dantzatu ebezala, ta beraz, oso atsegin izan yakozela bertaratu zan notintza... gitxiari.

Ez dakigu nork antolatua izan zan ballet-jai ori, baiña, batzuk izan dirala edo besteak izan dirala, ikusi doguna da, buruan utsa ikusi dala. Ez da orretariko jai batek merezi daben gertakizunik izan, ez zabalkunderik, ez ezer. Gitxi batzuk baiño ez eben jakin errian, jai ori ospatuteko zanik-eta. Orregaitik-edo, areto orren tokirik erdia be ez zan bete, naita ikuskizun bikaiña izan donostiarrak aurkeztu ebena. Uste dogunez, urrengoan erriari obeto jakiñarazoko dautse, jairen bat gertatuten dabenean. Bestela, orretariko punpala izateko arriskuan izango dira-ta.

ZAURITUTA

Orain egun batzuk, Abuso'ko gurutzeroan, euren berebillagaz joiazala, topa-topeka gogor bat izan eben, Garabieta'tar Joseba'k eta Larrinaga'tar Josune'k senar-emazteak. Obeto esanda, gurutzero ortatik igaroten joiazala, burdibil andi batek guztiz maillatuta itxi ebazan... eurok eta berebilla. Topa-topeka ori ikusita, bizirik geratu zirela ziñestutea gaitzagoa zan. Zorionez, ez zan jazo, jazo litzakenik, ta lerro oneik idazten doguzanean, oberantz andia eginda, oetik jaikitzen asita arkitzen dira senar-emazte euskaltzale oneik. Poztuten gara, Joseba, zauri orreik geiago izan ez diranean, ta ea laster ikusten zaitugun eiza-izkillua lepoan edo esku-makillea besoan dozula inguruetako mendiak zear.

EZKONTZA

Kepa Deunaren egunean, Elexalde'ko Ama Neskutsa'ren txadon zaar ospetsuan ezkondu ziran, erri onetako Jugo ta Apellaniz'tar Maite neskatilla liraiña, ta Arrigorriaga'ko Saratxaga'tar Koldobika mutil zintzoa. Zorionak AGUR'en bitartez, eta betiko izango al-da egun ortako poztasuna.

JAYOTZA

Bagilleko erdi aldian, seme eder bat euki eben, euren sendiko len-igalia, Oteiza'tar Jon-Karla'k eta Orue-etxebarria'tar Miren-Bingene'k (Maribi), senar-emazte gazte euskaltzaleak. Eta orretara izanik, ugatzaukeran Gorka euskal izen bikaiña ipiñi eutsen. Zorionak eta ea benetako euzkotar bat asi ta eziten dozuen. Seme zintzoen bearra izango dau gure Erriak-eta.

BASA-JAUN

Arrasate

JAIAK

Azken igarotako illan, jai asko izan ditugu. Batetik Udalpe Alkarteak eratuta: Itzaldi politak Lmazasoro'tar Iñaki'ren gain, berak dakien modu ederrian gertatuta. Gero Zaldibar pelota-lekuan, errian ez-ezaguna dan Joko-Garbia pelota-jokaldia. Gure pelota-lekua aundia zalakoan luzez baiña motz dago joko au bear bezela egiteko, orregaitik ez giñuen bere edertasuna ondo nabaitu. Jokaitzaileak izan ziran Zubieta eta Billabona'koak. Euron artean be bai-ziran mugaz andiko gure bi anai ere.

Urrengo jaia Aurren eguna izan zan. Beste urtetan bezela aundikiro ospatu zan. Ume talde ederra eta kaleetan ibillaldi ederrak izan ba'ziran be, arratsaldean jai-aldi ederra Zaldibar'ko pelota-tokian. Dantza eta abesti eder artean ikusi zan Lizarra eta Iruña'ko taldeak egin zuten lan ederra eta erakusgarri emon, «vasco-navarro» izen-orde ori, guzurra dala eta gure anai naparrak geu bezin euzkotar utsak dirala. Azkenez biribilketa polit baten bidez juan giñan goiko plazara eta emen «Agur Jaunak» abestu ondoren bukatu zan egun eder au. Urrengo arte!

Azkenez, igaro ditugu Sanjuanak, alai eta baketsu. Jaiatean berebiziko izan da Donostiar Abesbatzaren saioa ederra. Baita eleiz jaiak ere aundikiro izan dira. Gero kirol saio batzuk eta dantza ugari. Baita umore ona, samur zabaldu ere Ponpoxo taldeak.

OKER BAT

Zarsarituak zirala-ta, «Agur» onen 42 g. alean agertu zan Gipuzkoa'ko Mutualidad Laboral' en bi milloe zegozela aurreratuta eta egia esateko esan bear da: BI MILLA MILLOE pezeta dirala aurretatuak. Egia bere lekuan.

E. OZKIN'ERI

Zuk «Agur» onen 43 g. zenbakian idatzi zenuna ikusita esan leike jazokun askon jabe zerala eta ain polito idazten duzunez zerbait geiago idatzi bear zenduke. Batez ere ontzi txiki aretan egin zenuen ibillera Ameriketara, aitatuko ba'zendu uste det jakingarria izango litza kela. Ea bada zure jazokun geiago irakurteko izaten garan.

ERIOTZAK

Jaunak beraganatu du, gure lagun izan zan Liziaga'tar Paule, andere kistar eta euskaltzale sutsua. G. B. Neure samin agurra bere senar Arregi'tar Tiburtzi eta gaiñetiko senide guztiei. Senar-emaste oneik sendi kistar eta euskeltzale on bat eratua izan dute eta danak bat-batez olaxen jarraitzen dute. Eredu ederra famili oneina.

Baita ere il da Bedoña'ko Erroxeli Aita buruñurduna. 40 urte eraman ditu Manila'n eta atseden apur bat artzera etorri bere jaioterrira eta bat-batez il-da geratu. Goian Bego.

JAZORIKOA

Orain dala 35 urte ba-ziran Bilbo'n emengo gizon batzuk, espetxeratuak, eta azkatu ziranean etorri ziran etxerutz. Eurotariko bat, bere izenez Antonio, geltokitik urten bezin laister topo egin zuan emengo Pedro Joxe Solozar (G. B.), gizon solaz-zale eta umerotsuagaz eta galdetu zion: «Da, Bilbo'n gorrixak ondo artu aue?» Eta arek; «Ez ba, goziak, eta garbantzuak txarto egosita emoten euskuzen; lurrera bota eta sake egiten zuten». Orduan Pedro Joxe'k; «Euk ez daukak ba itxura txarrik». «A! Neu sukaldean ibilli naiz koziñero». «Orduan, gorrixak etzaukien kulparik, eu intzan erruduna...»

UDALAITZ

Bilbao

ONDARTZ GARBIKETAK

Udea eldukeran ta ondarrak, garbiketak egin bear gorrian aurkitu oi diralarik, bagillaren ogeian, Las Arenas'ko ondartzan Iberi lur-adarraren kutsu-garbitze leiaketa lenenak egin ziran. Ordu beteko lana izan zan bakarrik ta ortarako gertaturiko amabi gizonek tecnika barri bat erabilliaz ta garasta-odi (manguera) luzeekaz orniturik, lau milla litro ixurki edo liquido bota ebezan.

Prantzezak ta Inglesak ala ta be gu baiño aurretik ba-daragoioe egiazki tecnika barri onetan, oraingoan baiña Bilbo'ko Industri bateko lana izan da.

Garasta-tutu luze oneikaz ixurkiak ondar-baster guztiak busti oi ditu ta bertan idoro leitekezan mamorro, bacteri ta zorri geienak il ta zearo garbitu. Ixurki mueta bitarikoak dira.

Bata Prantzesa «phagogene» deiturikoa, garestiagoa atan be, ta «fenol» egaz osoturikoa. Bigarrena, Inglesak ta bilbotarrak erabilli oi dabena; au merkeagoa alegia. Ixurki merke ontan sartu oi dira Yodoa, meatzeko miñak edo azidoak, urtarazle bat, urtu arazoteko guztia, ta azkenez ura.

Usain bakoa ei da ta ondartzetan ezezik, olategietan, kortetan, Uri-aundietan, Zezen Enparantzetan ta... erabilli leitekena ziurrik asko.

Gaiñera ez da pozoiduna, edenduna, Jaurti ta bost minutura, edonor joan leiteke ta lasai-lasai, patzadaz ondar-zabalean etzun.

Esan dogu merkea dala. Garbiketa au astero egitekotan udalde guztiko eralketea, iru-lau illabetekoa, kontixu, berrogei milla laurlekokoa or-or izango litzake. Beste inguruko ondartzak be zain dagoz. Orrela Erreaga, Plentzi, Bakio, Ondarru t'abar.

IBAIZABAL TA NERBION IBAIAK

Garbitasun geiago bear da ez gure ondartzetan soillik, baita ere gure erreketan, ta batez bere Bilbao'ko Ibaizabal ta Nerbion ibaietan. Azkeneko biak (bat osotu oi dabela esan lei) ur loi baltzgorrizkak dakarrez ia itxasbide guztian. Dana ezin bada ere onbideratu, Olategi ta Industri garrantxitsuenak arte ta parte artu bear leukee ibai garbitasuna al giñoan zaintzeko, sarramarrak, zapi ziñik ta beste onelako zer-itxusiak bertara ez jaurtitzeko. Guzti orreik ba, uren joan-etorriaz sarritan ondartzetan geldi-tu oi dira-ta.

BILBAO GERORA BEGIRA

Bilbao'ko Udaletxeak asmo barri asko ditu bai Artxanda'rako, bai Santo Domingo'ko mendi tontorrean datzan «El vivero» rako, baita Artxanda'petik Asua' raiñoko bi zabaleradun mendi-zulo bikaiñ bat berebil txiki-aundientzat batez bere egiteko. Baiña guzti ori beste baterako iztera noa. Beste aspaldiko asmo bat ba da gure udaletxean-eta. Ots, San Anton'etik Arenal'eraiñoko ibai zatia estaltzea. Asmo ori betetekotan estalgune au belbillentzat, jende-belbil geltoki yaukal, aparteko bat egiteko be baliatu leiteke egiz.

Baiña, oraindik guzti oneik asmoak dira. Noiz beteko ete?

ARREGI'TAR JOSU

Berriz

YON DEUNAREN JAIAK MURGOITIO'N

Igaro doguz aurten be auzuna onetako jaiak. Urrengo urtean be ospatzeko izan gaitezala, osasunez eta poztasunez beterik. Eskari bat egin bear dautsegu, orraitiño, bertako egitarau-orria eratzen dabenai: *euskera errikoian* egin dagiela, erriarentzat dan ezkero, eta atara baiño len, utsak orraztu dagiezala. Esate baterako:

Hilan 23, 24 eta 25-rako: zer da «Hilan» ori? Erderazko «ellos hilan» ete-da?

Hilak 23, ostirala; Hilak 24, larunbata; Hilak 25, igandea: zegaitik ez «Illak 23, barikua, zapatua eta domekea»?

Mus sariketa *binaka: binaka* ori, agiñak garbitzeko «Binaca» iragarki ezaguna (edo «anunzio famatua») ete-da, ala euskerazko *biñaka?*

Lehelengoa: leenengoa be, bokal bien erdian itza apaiñago geratu daiten: lehenengoha; eta Murgoitio ipiñi bearrean, idatzi Murgohitiho, onetara apaiñago ta dotoréago da-ta.

Hirugarrena: ori be apaiñago dago «h» ta guzti, eta ez dakianak ikasi dagiala, euskera ikastea errazagoa izan dakion!

«Cajón sopresa bat» eta «Cafe cumpletu bi»: ori dok, ori, oraingo euskera barria, garbia ta *modernoa!* Axular'ek berak be ba-etedakaz berba barregarri orreik?

«Rebelde conjuntoa opainduta»: ez dakigu zer esan nai dauan.

Emen orain beste au be: «Herrerito ta Haulogio famatuak dira heuren bizitza ta millaiak, 12 asaltoen baimenean itxiko dituzte. Arbitroa «Iliño» filipinoa izango da»: ulertzen dozue ezer, berriztarrok? Nik neuk tautik be ez.

Emen beste berba barregarri batzuk:

«Herriko txistulariak, heuren soiunekin».

«Dantzaldi han amaitutakoan».

«Bertsolari Saleen».

«Kopa ta ailasko bi».

«Oharra jan antolatzaileak ez dute endiko zer ikusirik jai honen bitartean zortzen diran kalte edo miñekin». Ez dakigu zer diran *jan, endiko, zortzen;* gutxiago, barriz, *miñekin* ori. Gu, beintzat, egitarau au irakurtean, buruko, begietako eta gorputz guztiko benetako *miñekin* gelditu gara. Esan egiozue «programa» orren «antolatzaile famatuari», datorren urtean obeto antolatu dagiala, Euskaltzaindirako «pasea» emon dagioen. Baiña, mesedez eta mesedez, idatzi egizue *erriaren* eraz, bizkaieraz, Berriz Bizkaia dogu-ta. Garbitu burua, batez be buru-barrua = adimena (euskera mordoilloz, intelijentzia, eta erdera garbiz, inteligencia).

BERRIZTARRA

Tolosa

TXISTULARIAK

Udaletxeko txistularien artean asarrea dago. Ika-mika asko. Azkenean, Udaletxeak ezegindu taldea. Jantziak eta gauzak Udaletxe'ra itzuli ditzatela eskatu. Ba-dago, onetzaz, zer-esana. Gogo guztietarako. Zertan geldituko guztia? Orain, beintzat, Euskalerrian zegoan talderik onenetako bat ezerean gelditu dala. Eta gure oitura zarrak txit ongi eramaten zekian erria, txistu otsik gabe igande dantzaldietan...

BERRIZ, «IKAS»

Erromerian piper-opil edo erroskillak bezin ongi saltzen da iztegi au. Jendeak erosi egiten du, ez bai-die kasorik egiten «H»'ren integristei. Gure gauzetan zaleturik bizi diranei eskatuko nieteke erosi dezaten. Nun erosterik ez baldin ba'dute, eldu bitez nigana, beti izan naiz euskera on baten laguntzaille. Neronek lortuko diet liburuxka jator au.

TOLOSA, F. C.

Bazkun onek aurten ospatzen ditualarik urrezko eztaiak, kirol jai batzuek antolatu ditu. Beroein artean Bilbo'ko Atletik eta R. Sociedad arteko futbola, eta beste zenbait kirol. Bere jokalari izan ziranei, oroigarri bezela, domiña bat emango zaie. Zorionak danoi!

«KULTUR» ITZA

Jose Migel Barandiaran jaun jakintsuaren aurkezpena egin zuan itzaldi artan. Itzaldian erdian Barandiaran'ek onelatsu: «Ez dakit auek (eratzailleek) nundik eta zergatik sortu duten «kultur» itza. Ez da euskalduna. Euskeraz «eziketa» esaten da. Ez, «kultur» itza ez da euskalduna... alemana baizik».

Gu, barrundik, parrez lertzeko zorian. Presentatzaille bikaiña lotsaturik... baiñan jakintsuaren esanagatik «kultur» itzekin jarraitzen.

Agian, eziketa itza ere «lokalismoren» bat izan bai-diteke...

EZER EZ ETA DANA

San Franzizko eleiz absideari begira nengoan. Iduritu zitzaidan margotutako Asis'koak esaten zidala: «...ez, ez nauk ni «hermano, lobo» a arkumetzen dakiana, ez nauk ni egaztiak neregana-tzen dituana, Jaungoikoa baizik nere bitartez...»

Iduritu zitzaidan ere, orren gozoa ez zan beste abots bat ba-zetorkidala, ez dakit absidetik ala sakristitik, ziona: «...amabostaldiaren» eratzailleak ez nekiana esan didate...»

Eta bera izan, jai orretan, Aita, Semea eta Espiritu Santua. Baita «Amen» ere.

O! asistar onen apaltasuna!

* * *

A! aaztutzen zitzaidan. Ba-degu orain emen bizitzen. «Askaleku» ezizenez, abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren Aita Santu agertzen dana. Umilla dalako ere... ez du bere egizko izenik agertzen Z. A.'tik «santutasunezko» makilla erabiltzeko garaiean. Kisto'k bere arpegia azaldu zuala aaztu. Eta berak siñisten ez ba'du «hoiekin» guk nola siñistu onelako fraille koskorrengan?

Bera bere «absidean» bizi dalako, laiño gaiñetan lo, besteak nozitu bear, nunbait? Gaiñera orren ongi joan ba-zaizue gauza...

Tira, mintza garbi, garbiago itzegin dezagun, gu garbizaleak gera-ta. Ixillik egonagatik, trapuk ez ateratzeagatik, bai-bai-degu zer astindu.

UXOLA


INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

Euskal erriko ospetsuak

Etxeberria'tar Ander

Andrex maitea, gaxoaldi luze xamarra ta neketsua igaro ondoren, «Gero arte!» iri esateko une ontan, i aizela-ta iñoiz aztuko ez dizkidan gauz bat edo beste idatzirik utzi nai dizkiat betirako.

I, jayotzez, errenderiarra izan arren, Leonor'ekin ezkondu ondoren oyartzuar egin intzan, naiz eta Errenderiar izateari utzi ez; emen bota ituken ire bizitzaren sustrairik sendoenak. Gure errira etorri intzan ezkeroztik, emen igaro dituk gozoaldi asko, ta baita naiko garratzaldi ere. Xan Ixteban elizako abeslari (bakarrik maiz aski ire abots lodi-ederrarekin), ta «EUN DUKAT»eko «RAMUS» zarrena egiten antzezlari bikain bezela gogoratuko gaituk bizi geran, arte.



OYARTZUN'GO «MENDIBURU» TALDEA (1935)
Erdi-erdian Etxeberria'tar Ander (G. B.)

Idazki ontan, ire antzezlari izateari elduko zioat, ortan bai dizkiat nik ireganako oroitzapenik ederrenak. Antzerki lanetan, gutxi izan dituk euskal antzezlarien artean, i bezin egokia zanik «zarrarena» egiteko. Ire nortasun eta izakera sendoak —ala berean ire beko abots zoliak—, ezin obeki laguntzen ziten antzerki eginkizun ortan. Baiñan egokitasun oyetaz gaiñera, antzezlari egiña, antzezlari yayo ta ikasia intzan Oyartzun'era etorri intzanerako.

Ba-zekiat nola egin intzan antzezlari... Gaztetxoa intzan oraindik...; gizon egiten asten dan garaya... Eta orduan, ire kideko neska-mutil gogotsu batzuek bildu ziñaten Goñi'tar Teodoro'ren inguruan. Danak euskal antzerki zaletasunez gaiñezka, Teodoro'ren gidaritzapean. Gidaritza zorrotza zian ark, erakusle gogorra uan Teodoro, —askotan ordu latzak igaro arazten zizkizutena—, baiñan antzerkiak nola ikasi ta nola bota bear diran ikasten erruz sayatzen zana uan zuzendari Goñi. Eta orrela, Errenderi'ko batzokiko taldeko danekin batera, orrela egin intzan i ere antzezlari bikain. Eta ala irabazi al izan zenituzten errenderiarrak bi lenengo sari: bat Donosti'n (1920), Garitaonandia'ren «IZIARTXO» emanaz, eta urrengo urtean, Elizegi andereiñoaren «GARBIÑE antzestuz, Gernika'n. Bi sariketa oyek «Eusko Ikaskuntzak» eratuak izan itukan.

Gure errira etorri intzanerako ik ba-akiken emengo zaletasun aundiaren berri. Garai artan, Legarre'n, praille Frantsesak utzitako antzoki zarrean aritzen uan talde bat urteko jai nagusietan antzerkiak ematen. Bein, Eguberritan, D. Manuel Lekuona'ren «EUN DUKAT» lenengo aldiz ematea erabaki zian talde arrek, eta ala, i Oyartzuar egiña egoalarik, nor i baiño egokiagorik «RAMUS» itsuarena egiteko? Eta bereala prestatu intzan artarako.

Orduan, oraindik mutil kozkorra nindukan (oporraldiak igarotzera Bergara'tik etxera etorria), eta «Enerio'ko Joxe», artzayarena egin nian nik. Gero, aunditu nintzanean, lendabizi «Jerontxio Artxintxar», aztiyarena ere egin nian emen Oyartzun'en, Errenderi'n eta abar. Eta Donosti'ko sariketa nagusirako gertu bear izan gendunean, zeregiñak obeki banatuz, «Ixteban», apaizgayarena egin nian. Oroitzen aizen bezela, bada, iru eginkizun euki nizkian «Eun Dukat»en, ik beti «Ramus» itsuarena egiten uan bitartean. Ainbeste agerraldietan, biok bertatik bertara aritzen giñanean, ongi baiño obeki sumatu al izaten nian ire antzezlari yayotasuna. Oraindik ederki aski nabaitzen dizkiat ire abotsaren indarra, ire esku, biotz eta gorputzaren dardara... Egitan nekeza izango zaiguk i bezelako beste «RAMUS» bat arkitzen!

Begirada bat bota akiok orko argazki orreri... ta zenbat oroitzapen! Gogoratzen al aiz nola prestatu giñan Donosti'ko sariketa aundi artarako? Gure antzeslari trebetasuna neurtzeko garaya eldu zanean, D. Manuel'en anai zan D. Martiñ apaizak «EUN DUKAT» artu ta aldaketa batzuek egin zizikioken lendabizi. Gero, gure sayoak ikustera ta ikutu batzuek ematera nolako gogoaz etortzen zan gizarajoa. Artan, Errenderi'n zegoken apaiz, eta al zuen guzitan etortzen uan guri laguntzera...

Donosti'n azaltzeko eguna iritxi zitzaiguken... eta donostiarrak zioteken, alegia, «bi apaizek egindako antzerki bat generamala», «gizonezkoak bakarrik lana egiten zuten antzerkia», «musikakin gentozela» ta abar, irri parrez jarriak zeudeken gure zai. Baiñan agertzen asi giñanean, ez ziten astiñaldi txarra eraman «Kursaal»eko antzerki zaleak! «Iratzebailleak» «jeupa-jeupa» ta «bristi ta brasta»ka... txalo! «Auxtiñ» eta ire alkarrizketa... txalo! Ura txalo-erasoa egun artakoa! Zer uan ura, Andrex! «Joxe», «Bi mutikoak», «Apaizgaya», «Petri» ta «Aztiya»rekin egin bear izan itukan alkarrizketa danak, ba-zirudiken zoramenez ikutuak zeudela... ta ura jendearen arrera beroa! Alaxe irabazi genian «MENDIBURU» taldekoak lenengo saria.

Egun artan aritu giñuztan danok, noski, bakoitzak bere eginkizuna ongi bete genian, baiñan i intzan «EUN DUKAT»eko ardatz; iregan zegoken talde osoaren oiñarria. Beraz, Oyartzun'go «Mendiburu Taldeak», bereziki iri esker irabazi zian garrantzi aundiko sari ura.

Gero, Lekuona'tarren antzerki orrekin, bi urte erreskan, 1935 eta 1936'ean, «Euskaltzaleak» eratutako «Olerki Egun»etara, Arrasate ta Lekeitio'ra deituak izan giñukan. Ze egun gogoangarriak! Eta ze ibillaldi pozgarriak talde osoarentzat!

Beste begiratu bat emayok argazkiari. Ortxe gaudek «Mendiburu»tarrak. Or agiri gaituk bizi geranok, eta baita arrezkero, banaka-banaka, il ziranak ere: Posta'ko Euxebio, Estankuko Joxe Manuel, Dunis'eneko Joxe mutikoa, Etxetxiki'ko Anttonio, Inaxio Zalakain, Kinkirrikiñeneko Joxe Luix, Garmendi'ko Lukax eta Lukax'eneko Felixiano. Onezkero danak besarkatu ituk... Goyan Begozak eta Betiko Pakean guztiak irekin batera...

Agur, Andrex, ta ba-dakik irekin alkartzen geran arteraiño, gure gogo ta biotzetan bizibizirik iraungo dukela emen bian.

OÑATIBIA'TAR YON

espatadantza

EUSKALDUN SEME ZINTZO ETA ERES - ERTILARI GORENGOTARIKOA

Noizean-bein, gure errialdietatik sortuten dira gizon argi eta benetan jakitunak, Euskalerriari ospe garrantzi andia ezarri eta batez ere Euskaldun danoi alaitasun eta bizkortasunagaz biztuten gaituzanak, gure gogo eta biotzai dar-dart eragiten dautsoenak, eta guk, gogo-onez artuten doguzanok, ezin, ezetara be ixillik egon, eta eurai, gure barruak zirkin-eraginda, gure poza, atsegiña eta gure biotzeko eskarrik onenak agertu bear.

Eta olantxe, lengo Bagillaren 23'an, Doniene aurreguneko gabaz, Bilbao'ko «Buenos Aires» Antzokian, Erestaldi-Jai entzutetsu bat ospatu zan, eta Brahams, Beethoven eresi-asmatzalle gorengotarikoen artean, LARRAURI' tar JUAN ANTONIO'k asmau eta erestalduriko ESPATADANTZA, oraingo era-barrizkundeko eresi sakon bat, lenengoz Eresi-Taldeak ereskindu eban, ABAO'ko Eresbatza bitarteko zala eta Larrinaga'tar Jose A. jaunak zuzenduta eta Pirfano'tar Pedro jaun entzute andikoa, bere jakintza bidez, artezkari zala.

Egiz, ospe andikoa izan da ESPATADANTZA eresi-barrizkundeko lan ori, durundi-zarata barriak, oyu, zantzo, irrintzi eta abesti tartean gure aintxiñakoen gudaketa, oraingo eta etorkizunaren Euskaldun izatea.

Benetan lan zalla ainbat durundieratako zaratak eresi-neurri batera alkartutea, eta abots eta durundi guztiak alkarturik entzun eta ikusgarrizko «Antzoki-lan eder-ederra»sortu eragin dausku LARRAURI'tar JUAN ANTONIO jaunak, aberasturik Euskaldun Eresi arlo sakon-sakona.

LARRAURI jaunak lendik ere bai-daukoz eresi-barrizkundeko beste eresi lan gorengotarikoak entzute andia emon dautsoyenak, baña oraingo lan barri onek, ESPATADANTZA'k, ludi osoko eresi asmatzalle-artean gorengo mallaraño jaso dabe eresi-barrizkunde lanetan eta bere izena zabal dabil Ereslari jakitunen artean.

Baña LARRAURI jauna bere eresi-barrizkundeko lanakaz ludi osoko Ereslari entsutetzuak gogo onez artu eta eredutzat ezarri ba'dabe, guk, Euskaldunok atsegiñez eta poz-pozik txalotu bear dogu Euskalerriko seme onaren lan goralgarria.

Eta batez ere, guk, entzun geuntsanok, egun orretan, Antzoki orretako irradi-izlari Zuzentzalleari, eresi-arloa asi baño len, LARRAURI jaunari itandu eutsonean, alkar izketa baten, onetara:

—LARRAURI jauna, esan egiztazu, zelan otu yatzu zure eresi-barrizkundeko lan bateri Euskera zarreko mintzaera ezartea? Eta LARRAURI jaunaren erantzuna onetara izan zan:

—Ba, jauna, jakin egizu nire gurasoak Euskaldunak direala eta ni beartuta nago nire eresi-barrizkundeko lan onetan Euskerea erabiltera, Euskerea zarra izanagaitik beti da barri eta edozein eresirentzako egoki-egokia.

Esakun ori, Euskaldunontzako, benetan pozgarria da. Euskaldun seme batek, ezetariko lotza barik, ainbat eta ainbat jaun jakitun eta andra agurgarrien aurrean bere gurasoen izkuntza, bere erriaren ezaupidea eta bere beartasuna argi eta garbi agertutea.

Artu egizuz, LARRAURI jauna, Euskaldunen Zoriyonak, geure eskarrik, samur eta onenak, baita be bai, Lekeitio'ko seme, ERKIAGA'tar EUSEBIO jaun Euskaldun jakitunak, ESPATADANTZA'ren Euskerazko arlo zatia ain ederto idatzi dozuen ezkero.

Eta LARRAURI jaunaren erantzun egoki-egokia eredutzat artuta, nire gogoak egazkada batzuk egin daust beste «Antzoki» antzerazko lekuetara, ainbat eta ainbat notin alkartuten direan Etxietara, gure Pelotatokietara, eurotan batuten dan notintzea beti dago zur eta adi, zer ikusiko, zer entzungo, eta Pelota zelaira agertuten direanean Soin ederreko mutillak, gaste zindo lerdenak, bulartsuak, sendoak, Euskaldun semeak, euroen gastetasuna eta trebetasuna ikusirik alderdi eta baster guztietatik txalo pozgarritsuak dantzuguz, esan geinke gaste orreik bizitza barria dakarskuela, itxaropen alaitsua.

Pelota-jokoa asi-ta, ikusle gustiak dagoz zur-zur, adi-adi, zer ikusiko eta zer entzungo daben, Pelotariak bizkor batera eta bestera, ekin eta ekiñetan, eta «Antzoki» antzera, emen ere, bai dantzuguz oyu eta didarrak, baña, gaur egunean, geyenez, eta, Zoritxarrez! atzerri izkuntzakoak. Gure gastaroan, oraintsu, Pelotarien joko-aldiko estutasunetako oyu eta didarrak Euskeraz izaten ziran: AURRERA, ATZERA, !JO!, SENDO, GOGOR, BIZKOR, KENDU, ESKOIRA, EZKERRERA, GORA, BERA, ALBOZKERA, ORMA - ALDERA, IKUS, ZENBAT, ESKOALDI, IRABAZI, GALDU, ITXARON, GARAITU, eta abar. Mintzaera gozotako itzak entzunik Pelota joko-aldi gustia Euskaldun aixetan jokatuten izan zan.

Gaur, barriz, atsekabez! esan geinke Pelota-Tokietan Euskerea bastertuta dagola, ezereztu eta lurpetuta gelditu dala.

Euskaldunak sorturiko Kirol eder eta ikusgarria, Euskerea aldendurik ikustean, Pelota-jokoa ere makaldu dala esan geinke, bere bizkortasunaren gatza galdu eta zer-ikustasun andia ezereztu.

Eta benetan samintasun garratza, atsekabe andia, Pelotariak izanik Euskaldun semeak, eta euren ogibidea eta bear ba'da entzutetasuna, bizitza gustirako emongo dautson Euskal-Kirol joko-aldietan ez erabiltea, ez mintzatutea euren gurasoen eta Pelota-Jokoari yaokan izkuntzea, orain artean erabilten izan zan Euskerea.

Pelota Joko kirola Euskalerriko jokoa izanik, indartu eta bizkortu bear litzake, zaletu ikustera joateko, eta kirol sendo eta garbi onegaz batera, gure Euskerea berbiztu, ainbat eta ainbat ikusleen artean barriro entzun daiguzan Euskaldun oyu, didar eta mintzaerea; ikusle gustien belarriak entzun dagien Pelota-Jokoa sortu daben Erriaren izkuntzea, eta ikusle orreik, bai pozik, eta alaitasunez, ikusirik jokolariak egizko Euskaldun mutillak direala itxaropen osoz ikusiko dabe euren jokoaldi bizkor eta garbia.

Aurrera beti,
Gure mutillak,
Sendo-garbiak,
Jokatu zintzo
Pelotaketan,
Ta entzun daiguzan
Zuen oyuak
Euskerazkoak,
Pelotak eurak
Ibilliko dira
Alde-batetik
Eta bestera
Bizkor ta pozik
Eta bai, zeuen
Esku sendoak
beti irabazi.

GAUBEKA ETA DUO'tar BITOR

AGVR

III URTEA
48 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - GARILLA - 22

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

AUTOBIDEAK

Udako egualdi onak eta beroak agertu ziran ezkero, gure barruetan ibilteko gurari bizi bat sortu jaku.

Gure gurasoak oiñez egiten ebezan euren ibiltaldi luzeak, baiña gaur baiño asko gitxiago ibilten ziran. Gizon andiak bai, laterririk laterri, baiña gure zarrak edo Urkiola'ra San Antonio'ri ikustaldi bat egitera edo Gazteiz'era abere-azokara idi buztarri edo bikote on bat erosteko amesez... Eta asko geiago ez. Ze pozik edesten ebezan euren joan-etorriak!

Baiña gu oso ibiltari biurtu gara. Edo lanak berak eskatzen ditun artu-emonakaitik, edo sal-erosteetarako, edo lagunak naiz erriak ikusteko gurariz, or goaz geure beribilla artuta edonora: urrera nai urriñera, geure aberri barruan nai kanpoan...

Asko ibilli bear izaten dogun ezkero, jakiña, arin ibilli bear izaten dogu: orduko eun eta ogei, orduko eun eta berrogei, t.a. Gero, sarritan, urrengo edatetxera sartzen garanean, estura barik egoten gara, au bai gero, bide zabaletan goazenean arin egin bear eta, iñork geldituazoten ba'gaitu, orduan iñongo asarreak.

* * *

Ibil-bearra deritxogun gaizo au ainbeste zabaldu da gure artean eta bere ondoren txarrak be ekarri dauskuz.

Lenengo ondoren txarra alkar-joteak dira. Zenbat gizon-odol gorri gure autobideetan! Bai, gai au luzea da eta urrengo baterako itzi daigun.

Gero alkarrentzat oztopo izateak. Sapotz asko aurkitzen doguz bideetan. Zergaitik edo agaitik, beribillen bat bidean gelditzen danean edo bide-barriztatzeren bat egiten dabiltzanean, zelako itxaroteak gure bideetan! Eta zenbat berebildun eroapena galduta autobide bazterretan! Ordu lauren edo ordu erdi itxaron bear ba'da, autolarien kirioak laster bizituten dira.

Bideak, geienak gure artean txarrak izan dira: estuak eta nondik ibilli argi agertzen ez dabenak.

Onetan Europa'ren maillara eltzeko gurari bizian gabiltz eta gaur egiten diran autobideak ez dira ain txarrak: zuzenak, oztopo bakoak, zabalak eta arantza ta onantza bide bi daukezenak, nondik eta zelan ibilli argi agertzen dabe... Baiña euretatik joatea ordaindu egin bear izaten da, eta ez gitxi be. Nondik edo andik beti datorku eragozpena. Edo ordaindu edo bide estuen nekeak igaro.


Askok, orregaitiño, trena dabe naiago. Trenean astiro ta gogotsu irakurten dabez euren idaztiak, alkar-izketa luzeak egiten dabez, eta gabaz, baso ta zelai ederrak ikusten ez dabezenean trenaren ogetxuetan lo egiten dabe. Trenean ostera atsedentsuagoak egiten ei dabez. Baiña, non edo an, erritxuen baten edo, geratu gura ba'dabe trenak aurrera joten dau, ez dau itxaroten beribillak lez.

Ostera luzeak egiteko egazkiñak artzen dira. Batzuk bildur izaten dira egazkiñetan ibilten, bidean jausiko ete diran edo, baiña egazkiñetan egiten diran osterak zoragarriak dira benetan.

Beribilla ez da izango erabilkiñik merkeena, baiña bai pozgarriena, ostera luzeetarako izan ezik. Berebillean, batez be autolari danak, poz berezi bat dau. Askatasuna asmetan dau barruan, edo bere buruaren jabetasun berezi bat, edo izadiaren jabetasuna... baiña, au gauza ziurra da: berebilla erabilteak eta autobideetan arin ibilteak gizonari poz berezia damotso.

Udea da ba, ta ibilli gaitezan gure autobideetan.

AGVR



Edonun uiala, ala're iturriak emon-ala!

Ibillaldi bat gogoratuz

Egia esateko aurten euri ta laiñozko zeru goibel, illunez, ez dogu ikusi al izan egun argi, egun on asko baiña, udabarria amaitu orduko orratio egualdiak uda antza dakarkigu ipar-aize ezearen ozkirri gozo ta eguzki bizigarriz, uri-baserrietan aldi obeago baten itxaropena sortaraziz... Diñodan egun, igandea, argi ta garbi azaldu zan:

Doninane aldiko, urteko egunik argi ta luzeenetan arkitzen geranez, ortik gure poza, domeka argi ta garbi, eder baten oskarbi itxaropentsuaren aurrean arkitu garanean... Astegunez lanpidetuak bizi garanok, iñora atara ezin garanok igandeari begira egoten gara uritik alde egin ta arnasa artzeko. Izadiratzeko.

Emaztea lagun bideratu nintzan. Norako amoz? Aldaba, Tolosa inguruko erri goiti, ta, osasungarrira. Donosti'tik Tolosa'raiño autobusean ta, gero, berebil bati esker, eguerdirako errian giñan. Egun ona aprobetxatuz, baserritarrak, gure nekazari langilleak, bedarra azpigoratzen ari ziran. Aldaba, erri-barrua, iru-lau etxe, ikastola ta eliza barri batek osatzen dabe. Ikuspegi zoragarriak alde guztietan.

Eliza aldameneko etxean giltza eskatu gendun eliza barrutik ikusteko. Atea zabaldu ta sarrerako esker-aldera bateatzeko pontea edo, ugutz-aska, arrautza baten irudiz bizitzaren sorkaria adierazten dauskuna... aitorleku berezi, polit bat, ta ormak santu barik, utsik... Txukuntasun egoki, apal ortan aldare-aurre ezin ederrago bat, leiarrezko orma apain, ikusbidetsuz izadiaren aunditasun iaungoikotsua biotz-begietaratzen dauskuna... Belaunikatu gara... Otoitzean? Ez dakit, baiña, an urrunera dakustan aunditasunezko ederbide, mendiarte ezeetako goibidez, an urrunean, begi-ikuste ta gogozkoetan nastua nabil... Izadiagaz bategiña Iaungoikoagan?... Biotz-begi, begiratze au... bai ete otoitz ederragorik?

Ikuspegi eder orren saillean Aralar, Orendain, Txindoki daurkidaz... Ta, Lizardi, gure olerkari aundia datorkit gogora:

Maite ditut gallurrak
argiak ez beste...
Ai, egaztia ba'nintz
gañik-gain nenbilke!

Elizatik ateratzean, ate-ondoko orman itsatsia dagon Kili-Kili'ren euskel kartel eredugarri polit bat be ikusi dot. Ta eliz-kanpoko orma baten izki aundiakaz: NOR IAUNGOIKOA AÑA?

Egurastera, aizea ta, erabat eguzkia artzera giñanez, bidezkoa zan zerbait geiago ikusi, ibiltzea. Ostatu Bar izeneko iatetxe ta ardangelan sartu-urten arin bat egiñaz, Santutxu alderantza, erdi egiña dagon bide barriz abiatu giñan...

Ixiltasunpe atsegin batean bildurik arkitzen gara bertan, urietako zarata ta itz-iarioa baiño sakonagoa, adigarriagoa dan ixiltza entzungarri ta biozgarrian. Ixiltasun barrentsu, sakon ori zugatzarteko aizearen eragin eta batez be, txori txintari, zozo kantari bizkorrak bakarrik urratzen eben... Nun bake-giro, nun abeslari obeagorik idoro?

Bazkal orduan, bi emakume tolosarren aldamenean, mai berean arkitu giñan bazkaltzen. Ta, iakiña, euskaldunak ziran ta ortik sortu zan alako aidetasun pozgarri bat... Bazkaldu ta gero kontuak esanez, alkarregaz bideratu giñan. Ikaztegieta'n bultzia artzeko bidez. Bitzabala itzi ta burdibide, bide-ziorrez mendi-bera abiatu giñan... landa ta zelaiez, lats ta zugatzartez, oraindik eze ta udabarritsu loraz iantziak arkitzen ziran belardi ta, bideberako garo edo ida-artez... Inguruetako ederrak lilluraturik alkarri itaunka: Ba-dakizu au zer dan? Bai, au agiña, ori patxaran edo okarana ta abar...

Emakume aueri esker belar-mueta batzuen euskel izenak ikasi nebazan: «Txitobelarra», ta, dantzari, txilibista, ta makarra deitzen iakon beste bat, ta, te-belarra... be, bai.

Arretaz ibilli ezkero beti ikasten da zerbait. Beingo batean iritzi giñan Ikaztegieta'ko geltokira. Bultzia be, laster etorri zan ta gure tolosar emakumeak alkar agurtuz geroxeago Tolosa'n ietsi ziran. Ikusiko al gara barriz? Iñoiz...

MUNIATEGI'TAR SABIN

ezezagun orri

Egun batzuk dira, «Herrikoa»k izenpetuta, eskutitz bat jaso nuela. Euskaldun barria dirudi, hache batzuk, an eta emen sakabanaturik, sartzen ditu, baiña giza legeak gordeta, begiramen guztiagaz idatzi daust. Onegaitik bene-benetan tamala izan jat eskutitz ori osorik izenpetu bakoa izatea, egilleagaz alkar-izketa luze bat pozik izango neuke-ta.

Bitartean, lagun, eskutitz idiki onen bidez erantzungo dautsut, irakurriko dozulakoan. Zurean, iru gai berezi aurkitzen ditut, eta puntuz-puntu erantzutera natorkizu.

Egia da, bai; politika edo gizarte-arazoen aldetik neure iritziak ditut, baiña Euskal-Erri'aren onerako litzakezan beste guztiak, bai alde batekoak naiz bestekoak, begirune edo errespeto guztiagaz aztertzen ditut... gero onartu edo ez, nere auzia da.

Orregaitik, errigintzan eta ekintzan dabiltzan langille guztiak, aintzakotzat ditut eta ez dautset nere laguntza apurra ukatzen, neurri batzuen barruan, jakiña! Beste era batera ikusten ditut euskalduntasuna soiñekotzat artuta dabiltzan alde bateko ta besteko etsaiak. Olakorik ez, arren!

Orain, arpegiak erakusten asi dirala esango neuke, ta jokabide oni zuzenagoa deritzat; ea onela lo-zorroan lasai dagozan gure lagunak itxartzen diran.

Argi dago ba, alde ortatik, nere jokaerea.

Bigarren puntuan, abadeen arteko auzia aipatzen daustazu... Ez da korapillo makala! Auzi orretan, adiskide, ez dot eskurik sartu nai, egi osoa nun dabillen ez da erreza jakitea. Orregaitik, aztertu ondoren ateratzen dodazan erabagiak, nere buruarentzat gordetzea naiago dot. Auzi onetan be, dana dala, lengoa esango dautsut: erriaren onerako dabiltzanak, danak, aintzakotzat artzen ditut, baiña «frutuak» erakutsiko dauskue gero guztiori, zugaitz bakoitza zelakoa izan dan.

Ta, irrugarren puntuan mingorrago ba' zatoz be, ez nozu arritu. Egia da, zuk diñostazun bezela, ni ez naiz iñor «Mitxelena batekin konparatzeko». Ori zuk esan bearrik ez dot izan. Zergaitik makillatzen dodan? Ez dot iñor makillatu nai izaten, neu aurretik makillatzen ez ba'nabe beintzat. Mitxelena'ri, gizon eta errikide bezela, begirune on osoa dautsot, eta izkuntzalari dan aldetik beste orrenbeste... baiña, ta emen asten dira «bainak». Nork ez du mundu onetan laprastadarik egin? Azken aldiko bere jokaereagaz ez nator bat eta kito!

Euskeran sortu dan nasteari, bere itzala emon dautso; bere lengo ta gaurko iritziak ez-bardiñak edo alkarren aurkakoak dira, ta abar. Ori sakonago ikusi nai ba'dozu, urrengo zenbakitik asita, gure aldizkari onetako Euskara izunpurua dun saillean, irakurri al izango dozuz, azterketa luze ta mamintsu bat bitarteko dala.

Ta euskerea batzeko edo batasuneruntz jotzeko alegiñetan dabiltzanen artean asko dira, idazkeran beintzat, Mitxelena'gaz bat ez datozenak. Euskaltzain batzuk aipatuko dautsudaz, h bakoen artean: Barandiaran, Erkiaga, Gorostiaga, Intza, Labayen, Lekuona, Zabala, Lopez-Mendizabal, Arrue, Lojendio, Manterola, Akesolo, Etxaniz, Eizmendi, Garmendia, Mokoroa, Pl. Muxika, Onaindia, Peña ta abar eta abar luzea. Ez du onek esan nai nere iritzikoak diranik be, baiña ez dabe hacherik erabilten!

Ipar aldeko euskaltzaiñak, auzi onetan, iritzi beriak dituez, ez baiña danok bardiñak. Ego aldekoen artean, bai lengoak, bai beste askok, burrukarik nai ezta, ixiltzea obe dala uste dabenak geienak dituzu. Zer nai dozu geiago?

Mitxelena'ri orain, lenengo urratsetan lagun izan ondoren, lengo «Bazkideak» arrika asi jakoz. Lenengo h sartzea, gero t kentzea, urrengo lapurdiko aditza... ta biar zer? Ai, ene!

Bere adiskide onenak, espetxeko lagun zintzoenak, errikide ta bazkide emonkor eta trebeenak, ipuin bidez (irakurri Ukronia izenekoa) guzurrez irainduak ikusteak ez ete-dautso gizon oni zirkiñik eragiten?

Parkatu adiskide, baiña eskutitz idiki au biotzez idatzi dautsut. Nor egiaren jaube? Ain urrun ez dagoan etorkizunaren zain!

Nai dozun arte.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

SASKI-NASKI

Idazlan oni, berri alai ta pozgarriak eman bezaio gaur asiera, zoritxarrez, berri pozgarri billa ibilli arren, askotan ez bai-det batere arkitzen. Gaurkoa, lengo igandean, Garagarrillak 8, Donosti'ko Antigua'n poxpoliñak izan zuten jaialdiaz izango da. Pozgarria benetan!

Goizean, amaiketan, Meza ederra izan zuten, len txistulari txiki talde eder batek, alaitu ondoren. Gaizki diot; ez len bakarik, Meza bitartean ere entzun genun-ta, bere saioa.

Aurrak guzia ondo ulertzeko eran itz egin zuten apaizak, naiz eta, nere ustez, akats txiki bat izan: aurrak talde politan bildu ziran elizan— aurrak ba, beren alkitan andereiño edo ama batzuek tartean ez izatea izan zan akatsa. Aurrak, jakiña, beti aur, eta pixka bat begiratzeko iñor ez ba'dute, berriketan eta, esaten zaienari jaramon aundirik egin gabe egon oi dira; urrengoan obeto! Kontuak kontu, nere iritziz oso ederra izan zan elizkizuna, dantzari, bertsolari txiki ta guzi.

Meza ondoren dantzari saioa, ta arratsaldean bestea. Ez niteken eguerdikoa ikusten gelditu, baiña arratsaldekoan, an izan giñan gure txikiekin. Bai txikiak eta bai aundiak pozik itzuli giñan saio polita ikusita. Gauza batek poztu nindun, berexiki, Alsasu'tik etorritako dantzari txiki taldeak. Bai jatorrak, beren jantziak *eta beren dantzak; pozgarria, bai orixe! Alsasu'tar napar anai-arrebak, Donosti'n eta jator ikusteak.*

Ainbeste gauza samingarriren artean, orrelakoak biotza alaitzen dute. Zorionak ba Antigua'tar eta Alsasu'tarroi!

* * *

Berri alaiak bukatu zaizkit ba gaurkoz. Eta orain betiko leloa! Noiz aldatuko ote degu au? Azkeneko AGUR'en, berriz Garatea'ren idazlana. Len, berari idatzia egin nionean, gaztea eta oraindik ikasi bearrekoa zala nion; baiña, zoritxarrez, oraingoa irakurrita gero, orrela ez dala dirudit. «Zoritxarrez» diot: ezjakiña dan bateri irakatsi bai-genezakioke, «zertxobait» dakigunok; baiña oraingoan agertu zaigunez, «ikasia» —«intelectuala» esan bear ote degu ulertu dezan?—, nion bezela ba. «ikasia» degu gure gaztea, ta onela gauzak zaillagoak bai-dira.

Ezin lasai irakurri ta onartu au, esate baterako: «Arana'tarren denboran berdin jazo zan», oraingo-«naspil» eta zuk diozun bezela «euskeraren oraingo egoera baldarra»kin berdinduaz esaten dezuna. Nere lenengo idazlanean ere, auxe esan nizun: Arren! ez berdindu eta alderatu ere «denbora aietako jazoerak» oraingoakin!

Aurrerago, «Arana'k eta bere jarraitzailleak euskerari emandako bultzakara aundia» ez dezula iñoiz ukatu diozu. Orixe besterik ez genun bear, ori ukatzea! Baiña nola eman dezaioke iñork «bultzakara» izkuntza bateri ta aldi berean «izkera txarra» erabilli? Era onetan, «bultzakara» litzake bai, baiña aurreruntz bearrean atzeruntz noski. Eztet uste Arana'k emandako bultzakara aitatzen dezunean, atzeruntz esan nai dezunik, ezta? Ortaz, berak eta jarraitzailleak ezin «euskera txarra» erabilli, zu «bere euskeragaz» egon ez arren.

«Aiek». Euskal-Erria, beren Erria maite-maite zutenez, euskera ere bai noski, eta onegatik erdel kutsua kendu nai zioten, euskera EUSKERA nai zuten, ez «euskera berria», EUSKERA baizik. Au euzkera «politica»rekin nastutzea ba'da?...

Zuk aitatzen dezun «garai artako» idazkiaren zatia birridatziko det («kopiatuko» obeto ote dago?):

«Egutegiko deun oneik, ludijon zeu letz bixi ixanda, orain donokijan dagoz zoruntsu, ta betiko egon be...»

Au ez dezula ulertzen? (konprenitzen?). Eta asko irakurri dezula euskeraz? Euskera irakasten ari zerala? Barkatu baiña, irakasten baiño ikasten obeto ariko ziñake noski.

Oraindik ere beste gauza batzuekin jarraituko nuke, baiña ez det geiegi luzatu nai, ta gaurkoz, naikoa izango da.

* * *

«Euskara goxoa» izenburua dun idazlana irakurrita —beste askotan bezela— arritu ta txundituta gelditu naiz. Lenengoz, nere ezjakitea aitortu bearrean naiz. Ezpaitet idazki orretan esaten ditun gauza asko ulertu! Nola maite izan diteke izkuntza bat edo erri bat «sexual ikuspegiz»? Berriz esanda ere ezin ulertu! Baiña gauza bat bai, ulertu det: ez nula iñoiz ere, euskeraz, ainbeste «astakeri» (au nolabait esateagatik, ezpaitakit zein itz erabilli, neri iruditu zaidana adierazteko) irakurri. Eztegu naiko naspil nunbait oraindik, baztarrak geiago nastuizeko! Zati baten onela dio:

«Euskara bere «onetatik», bere erroetatik atera beharrezkoa baitugu. Zazpi giltzaz gorderiko birtute, ahalge (vergüenza, timidez, pudor) eta zahar usaina lapurtu behar diogu».

Eztet ontaz itzik esan bearriak, ulertu nai dunak au irakurtzea naikoa dula derizkiot.

Aurrerago «Ediporen complejoa» aitatzen du ta ontaz beste eragabekeri (disparate), emen aitatu ere ezin ditezken eragabekeri askoren ondoren, beste au esaten digu:

«Konplejo hau Herri mailan ere eduki daiteke. Hala diote behintzat zenbait etnologo eta soziologo seriosek».

Len nion bezela, gauza abek irakurrita, ta «Etnologo eta soziologo seriosek» ori esanda, nik uste baiño ezjakiñagoa arkitzen det nere burua. Ezpaizait iñola ere buruan sartzen, nola izan diteken «Herri mailan» «konplejo» au!

Eta, jakiña! «Euskera ama» Edipo'k bere ama maite zun bezela maitatzeko, Aita ere nunbait izan bear. Ontan ere etzaigu atzean gelditu «izkribalaria». Aita ere sortu du, ba-al dakizute nor dan? ERDERA! Emen birridatziko dizuedan zatitxo ontan ikusiko dezute au:

«Bestalde ez dugu geure euskara maitatu (eraz aldatu) nahi. Aitaren (erdararen) *beldur geralako». Bejondeizula! Zu etxerako!*

Amaitzeko, bere idazlanaren bukaera jarriko dizuet: «Euskara indartsu egin nahi badugu, BORTXAZ egin beharko dugu. MANTXATUZ agian».

Au guzia «nolabaiteko» aldizkari edo orritan ikustea, ez litzake pozgarria, baiña ez litzake arritzeko ere, bakoitzak bere iritziak ematea zillegi baita nere ustez. Baiña, au guzia lekaideak (prailleak) zuzendutako aldizkarian (orrela dala uste izan det nik beiñepein) bildurgarria dala derizkiot; eromen bizi-bizian gerala adierazten bai-du onek!

AMALE'K

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

TXOMIN AGIRRE'RI

BERE JAIOTZAKO
EUN-URTE URRENEAN,
BERE ERRITAR BATEK.

Erriak

GORA TXOMIÑ AGIRRE APAIZ ARGIA
EUSKAL LORATEGIKO LORE BITXIA
ONDARROAKO SEME KUTUN MAMIA
ARTU ZURE-ERRIAK DAKARTZUN SARIA
EUSKERAREN ERDIAN «URREZKO AULKIA»

Ume batzuk

1) Maiatz udaberriko argi lorea
Auñamendin autatzen ezin obea
Ezti lanean ala-nola erlea...
Txomiñ zure bidea
Jainko legea
Maitatzea elea.

2) Beren odola eramanik zaiñetan
Biotza eman zendun arrantzaletan
Illezkortu Euskera ekaitz beltzetan...
Kitoliz'en itzetan
Kresal bitsetan
Kantauriko ertzetan.

3) Artzain Joanes'en bizitza mendikoa?
Gogo barrengo garbiaren mintzoa?
Zein dan Euskaldun baserritar zintzoa?
Fameliko beroa?
Pake goxoa?
¡Or daukagu GAROA!

4) Itxaso, arkaitz, zelai, baso, mendiak
Fede, oitura, Lege-Zar, ongarriak
Elerti lore oyetan zuk jarriak...
Izkuntza oiñarriak
Edergarriak
Maita ditzan erriak.

5) Noizbait mundutik geran zeruratzeko
Egatu ziñan aingeruen antzeko
Doatsuekin betiko gozatzeko...
Kresal, garo, loreko
Zorioneko
¡Or zaitute gordeko!

Erriak


GORA TXOMIÑ AGIRRE APAIZ ARGIA
EUSKAL LORATEGIKO LORE BITXIA
ONDARROAKO SEME KUTUN MAMIA
«ARTU» ZURE-ERRIAK DAKARTZUN SARIA

EUSKERAREN ERDIAN «URREZKO AULKIA».

AITZONDO

Oarra: Egilleak, eresi edo musika berezia ere jarrita dauka kantu auentzat.

GORA, ZU!



Ixillean nai ete-zenduan? Jakin dogunetik baiña, ezin gu ixildu; ezta urrik be!

Abando'n bultzada indartsua artu ebanetik, Gure Euskera zar eta eder onek, euskaldunak ain maite daben bere izkuntza zoragarri onek, beste bitxi ta arnari bikaiñen artean, iru euskara ezagun-ezagunak izan ditu unerik eta okerrenetan: Azkue'ren iztegi nagusia, orain, Retana'n esker danon eskura eldu dana. Onaindia'ren Olerki bilduma betea (orain itz-lauz idatzitakoena egiten ari da) ta Muxika'tar Plazido aitaren iztegia, bearrezkoa euskerea osorik naiz erdizka galdu dabenentzat.

Ta, ara nundik gaur jakin. Muxika aitak, il onen 24'gnean, Loila'n bertan, 1922'gnean Jaunaren eskerrak eta baimenak lortuta Josulagun egin zanetik, berrogetamar urte betetzen ditu Urrezko Eztaiak, Plazido aitak, bere lagundiko zeregiñetan Jaungoikoaren aintzarako!

Ta, gu ixildu ezin. Azketsi arren, jaun agurgarri orrek; ixillean naiago ba'zendun be, egia ez da egun zoragarri au zeurea bakarrik, Euskal-Erri osoarena baiño, ta AGUR onetan gabiltzanona be bai. Zorionak, zorionak eta zorionak! zer geiago? Jaunari gure otoitzak, gure ondoan iraun al-izateko, Bere laguntza osoa izan dagizun; gure euskera urtetsu au, Berak emon euskun gure gogoaren zati au indartu al-dadin, zeu izan zaitezan gudari, Bere gauzetan zaran lez.

Garil onen 24'a! Egun aundia Euskal-Errietan, Goazen danok soiñez naiz gogoz Loiola'ra, an, Plazido aita, bigun eta apal, euskerearen alde lanean eta otoitzean aurtituko dogu. Ta, zer esan berari? Ez daigun larregian nekatu; bere eskuan muiñ-egin, ta, eskerrak aita esku onen laguntzaz egin al-izan dozun guzti orregaitik, baita Noni ta Nani ta Mendiko argiagaitik be.

AGUR'engoengandik, laster arte ta.

AGUR!

SAN MIGUEL

Euskal idazti ta eresmintzak
Gaur, atzo ta beti-betiko Euskal-gaiak
bakarrik eskeintzen dituan etxe bakarra.

Alda. Urquijo, 60 - 5'gnean.
42 24 98 urrutizkiña

BILBAO, 11

IRAKASLE
ANDEREIÑO-LAGUNTZAILLE

Bearrezkoa da, ta egunetik egunera garrantzi aundiagokoa, ikastoletan diarduenak euren ekiñaren eta izatearen agiririk geien eskuartean izatea. Legeak gogortzen ari dira, ez da erreza izango emendik aurrera, zoritxarrez, asmo onez eta eskeintza osoaz bakarrik lan eder orretan jardutzea. Arduradunak eta irakasleak eurak, al-danik-eta agiri indartsuenak eskuan izateko kezkatu bear dira. Orretarako dira Dagonillaren lenengo egunetan Loiola'n izango diran ikasketak. Orretarako, batez be bizkaitar irakasle ta laguntzailleentzat, Bilbo'ko EUSKERAZALEAK emoten dituan ikasketak eta azterketa zeatz bat ondoren, or lortu al-izaten diran agiri ta irakasle bideak.

Ta, datorren ikastaroan bear izango diran erakusgarri oneik eskuratzeko egizuz zeure alegiñak aurtengo oporretan dietan, zeure onerako ta zeure ardura diran umeen oberako, zure ikastola orri aurrera egiteko aukera izan dagian.

Joan zaitez ba, Loiola'ra, etorri Bilbo'ko Colon de Larreategui 14'an Euskerazaleak daben ikastarora.

IBUR

GAZTE AITONA

Irirogei, irurogei ta amar, larogei... zenbat urte ote dituzu? Asko noski, geiegi pixkor eta arin ibiltzeko, osasunez sendo arkitzeko. Izan ere, lan ta lan, al dan neurrian ekiñaz, igaro dituzu urte asko, zu eta zure sendia aurrera ateratzeko asmoakin.

Or, enparantzan, lagun artean ikusten zaitudanean; txapel tiki bat buru gaiñean, galtza zimurrakin, txaleko batekin eta pipa erreaz: poza eta tristura ematen didazu.

Poza, oraindik bizirik ikusten zaitudalako ainbeste lan egin eta gero. Izan ere, zuri esker bizi naiz eta ori ez da aztutzeko gauza.

Bestaldetik begiraturik ordea, tristura ematen didazu. Lanean alegintze orrek, ziur asko naigabe geiago eman dizkizu, alaitasunak baiño. Bear bezela ordaindu gabeko lanak, begira nola utzi zaituten, esku latzak, arpegi ximurra eta bizkarra okerturik.

Aitona, oraindik lengoari loturik jarraitzen dezu. Nola gustatzen zaizun, lenagoko goraberak gogoratu eta aipatzea!

Ba-dakit bai, baserritik irten eta bi orduko bidean, menditik barrena, irixten ziñan ol edo pabrikara, bi edo iru laurleko irabaztera.

Ba-dakit bai, jai-egun eta igandetan, lagunekin nola biltzen ziñan, sagardotegi batean, eta ango alkartasun paregabe arrek, amaika giro zoragarri ere lortu. Eta sagardoa... bikaiña benetan!

Ba-dakit bai, andragaia, gure amona izango zana, ikustera joan bide luzean, eta zenbat aldiz etxeratu zera, ia berarekin, esate baterako, itzik egin gabe. Musu-laztan baten egarriz etxera biurtu?

Zenbat gauz ez dituzu egin eta ikusi. Direla apostuak, estropadetan, pelotan, arrijasotzailleetan, aizkolarietan. Burrukak gogorrak ere, auzoko errikoekin. Aiek ziren denborak, aiek!

Gaur ikusten dituzu, zure alboan, milla aurrerapen, garai artan ikusten etziranak. Ez kezkatu aitona. Zuk ere parte dezu-ta aurrerapen auetan. Garai artan egindako lanaren jarraitze bat besterik ez da izan ere, gaurko egoera au.

Aitona, zenbait gizonek, zure billobatxoaren antzera biurtzen ari zerala diote: ume alegia, Benetan, ez jaramonik egin oieri. Zuk ume, gazte eta gizon bezela dakizu jokatzen. Izan ere, ez dituzu alperrik igaro bizkar gaiñean daramazkizun urte mordu oiek. Danetik ibilli eta ikasia zera beraz.

Orain, ba-zoaz gertutzen, poliki, lasai, presarik gabe: ulertzen didazu noski aitona, beldurrik gabe beti bezela, burua aurrera begira, eta kondairan zear utziko dezu idatzita «Ara or gazteok, nik egindakoa» —esanaz.

Aitona or enparantzan, ikusten dituzu aurrak jolasean. Apur batean begiratu eiozu, zure pipatik igeska dijoan keari. Ikusten dezu?

Gora dijoa gora, poliki, poliki, urrutira oso urrutira. ZERURA.

RAMON ZAPIRAIN

LIBIA

Egun batzuk dirala, Libia'ren lendakaria dan Muammar Gaddafi'ren esanek, sor eta gor utzi dabez sartaldeko jaurlaritzak; alegia, munduaren aurrean, ta batez be, munduko alde bateko errezuma alguztidunen aurrean, euren aurka ekiten diarduenei esku emoten dautsena agertutea, ezta, ez, egunerokoa edo oi danzekoa.

Eztirudi trebea ikusirikoak: aurrezkoek ikusi dayezan, asmakizunek eta azpiko-lanek agirian jarri, ez ete-da egindako alegiñek alperrik galtzea? Onetan, ordea, ulertu nai edo uste izan dabenek ugari izan dira: Gaddafi ospearen billa, arabitarren buruzagigoaren billa ei-dabil, ta bere aldetik IRA edo Amerikako burrukalari baltzentzako laguntza aitortuaz, beretzako laguntza billatzen ari ei-da; ta askok susmatu daben lez, Gaddafi'ren aldetik IRA'k edo amerikar baltzak jasoko daben laguntza soilla, aizetara botariko itzena izan ei-leiteke.

Aundinaiak artuta, tipi-tapa, Gaddafi buru dala, Libia'k jaretsi dau Mediterraneo'an leku berezi ta nagusi bat, errezuma arabitarren artean izan be. Aintzakotzat artzekoek dira aspaldion jazoriko egitadek, gorabide onetan, ta Idris errege zarraren monarkia lurrera jo ebenetik iraultzaille libiarrek.

Lenengo ta bein, Bigarren Guda Orokorraren ondotik, sartaldeko nagusiek arrapatu ebezen aize-kaiek itxi ta gudari arrotzek euren errietara itzultzea lortu eben, Errusi-ta bitarte dirala; augaitik asieran sartaldeak libiarrek begitan artzen asi ta Libia'k ezkerraldera jo bear-izan eban.

Geroago, ta aberri-arteko eskubide guztiak ardura-izateke, egazkiñez joyazan otsemoille sudanarrek, Jartum'en iraultza egin ondorengoek, giltzapean ipiñi ebazan, egazkiña lurreratu-arazorik izkilluz eta guztiz; onelan, Sudan'go jaurbide komunistazale barriak porrot-egin eban, ta aregaz batera Errusia'ren elpuruek Urreko Sorkaldean kalte andi bat artu eben. Onelan be, Libia'k munduko alde nagusi bien artean orekan egoten lortu eban. Benetako egitada, baiña, auxe zan, Sudan'en jaurbidea, iraultza iragan arte Gaddafi'ren laguna, ostera be laguntzat eukitea: arabitarren barruko burruka gogorrek ulertu bear dira, erabagi zorrotz au ulertu al-izateko.

Bestekaldetik, bere mugaren aldean daukon Txad lurraldeko arazoetan sartu zan, legezko jaurlaritza baltzaren aurka egiten daben arabitar biurrien aldez. Txad'en, len Frantzia'ren menpekoa, baltzek egoaldean eta arabitarrek iparraldean (Libia'n ondoan) dagoz, ta Paris'en politika-oiñarria baltzen gaiñean sendotu da, arabitarren kaltez. Augaitik laister asi zan bertan guda ixil bat, gero Libia'ren jokabideagaz, zolia aldaturik.

Malta'ren buruaustean be, Libia bizkorbizkor idoro dogu, Dom Mintoff jaunari, ugarte aretako altsein edo ministro nagusia, lagundu-ala eskeiñiaz, NATO'gandik akura geitzeko eskapenari ezetza artu ta gero. Zurrumurrua ibilli zan, Libia'gaz Errusia'k Mediterraneo-aren erdian bere guda itxasontzientzako kai bat lortu nai-ebala. Danadala, baretu egin da Malta'rena, baiña Libia'ren ausartza nabarigarria izan dogu.

Azkenengoan, or dakusegu Libia barriz, arriolioaren arazoa zuzentzen, azkortzen eta buruberotzen. Onetan, egiz, ba-dauka Libia'k bein eta betiko burubidea, ta onen antzera, gaur larri, txiro ta erbesteen nagusitzapean ibilli bear diran erri askok: arriolioaz jabetuaz eta bide onetatik salneurria jarriaz, errez elduko dira bizi-mail egokiago batera ta bear dan itzala eukitzera munduaren aurrean.

Ekiñaldi guzti onetan Gaddafi'k beregana tu dau arabitarren buruzagitza; Ejito'k galdu ebana Nasser lendakaria iltzeagaz. Ejito'n Sadat lendakari barriak oraingoz naiko ta gonpuru daroa, bere jaurbidea irauten eta sendotzen, eta barruko arerioek jasaten diñarduala.

Arabitarren ardatza igitu egin da El-Kairo' tik Tripoli'ragiño, ta berez aldatu dira ludiko atal onetarako alde nagusi bien zaintza ta ikuspegia. Errusia'ren gurari zarra, Mediterraneo'ratzea, bete da biziroago Libia'ren abegi ona burutuaz, Sudan'en jazorikoa jazo izan arren.

Alan da guztiz be, Libia'k bere bidea aukeratu dau, ta arriolioak ekarri oi dituan irabaziakaz, Mediterraneo aldeko lenengo maillako errezuma izateko adiuntza jatorko. Goian aipatu doguzan esanek, ontxetik eskuarte guztiak ustiatuko dauzala dirauskue, ta beraz, sarri-sarri Libia'ren izena entzungo dogulakoan nago, or-emenka ta danen aomiñen.

Mediterraneo itxaso zarrean aberri barri bat abiatu da. Aberri zarrek, ordea, leku egingo-ete dautsoe, onean? Beste askotan lez, onetan dana ikuskizuna dogu.

ARRIORTUA'TAR ANDER

Nere Lagun Ori

«Gizonezko edo emakume edo mutill ori, nere laguna *da»: itz ori, ez al dugu errax ta arin samar esan? Ba'aldakizu zer esaten duzun? Zer da lagun izatea? Igandero alkarregaz «txikiteoan» ibiltzea? Edo-ta batek aserretu nai ez ba'du, besteak esandakoari «AMEN»?*

Neretzat lagun izatea, ori baiño geiago izatea da: adibidez, ezkonduen bizitzaren muiña ta arrakasta nun arkitzen da? Emazteak, senarrari dion begirunea dala-ta, onek esandako guzia ameto ematea? Edo-ta alderantzi; emazteak, senarraren nortasuna bereganatzea? Batasuna, ta alkartasuna ez dira berdiñak ezkonduek soiñ eta aragien batasuna lortu arren, ba'liteke agian, pentsamentuan bat ez etortzea.

Beraz, arlo au maiz begiraturik, aztertu ta sakondu bear genduke ta oso onuragarria izango zaigu. Ezkonduentzat beste arazo guztien gaiñetik, ezkontza-itza izan bear du: eta euskaldun lagun artean, euskalzaletasuna ta erri-nortasuna! auxen dugu, etxearen oiñarri.

Danok berdiñ ez dugula pentsatzen? Jainkoak ludi ontan, egin duan gauzarik bikaiñenetakoa auxen dugu: alegia, gizon bakoitzak bere pentsakera izatea, aberastasun guzia arlo ontantxe bildurik aurkitzen da. Baiña, aberastasun ortara eldutzeko, ezi bearra daukagu, alkarri entzuten ikasi, eta lagun-arteko pentsamentuak alkartuaz, ondo ta sakon ausnartu: au egiten ikasiko ba'gendu...

Euskaldun lagun artean, danok, oiñarri bat eduki bear dugu: pentsamentuak berdiñak ez baldin ba'dira ere, pentsamentu oiek, erria aberastu ta erriaren onerako izan bear dute, eta ez suntzikor!

Lagun izeneko aunitz ditugu, baiña benetako lagunak zenbat? Abertzale izenekoak, konta eziñala ditugu, benetakoak zenbat? Sozialista izenekoak, maixukerian dabiltzanak, beste orrenbeste, baiña benetakoak zenbat?

OSARTZU

MUNGI'RA BEGIRA

Joan jakuz bai, Pedro deunaren jaiak, erri ontako jairik nagosienak. Bagillaren 29'gnean ospatuak. Baiña orain, nire buruari galdetzen nabil:

Zertarako izan dira egun orreik? Zertan geratu gara?

Nere ustez, ezerrezetan, ta ezer baiño txarragoa da, orain atzerantza emoten diran oinkadak; gizarte batek ipinten doskuzan bide errez-errezak onartuta, ortixek goaz ezer gogoandu barik.

Bat eta bi baiño geiago izango dira diñuenak: «Ezer ez dala egin? Ba, guk, beintzat, itzelez igaro doguz!» Orduan diñot nik, «zer dok zuentzat ondo igarotea?» Edan-tokietatik, batetik bestera ibilli, emen edan, an aruntzkoan bere beste apur bat edan, bien bitartean abesti batzuk eta zokorru batzuk egin eta mozkorra oratu? Ori da gure euskal-erriaren alde egiten dogun guztia!

Ez dakit noren eskuan izan dan jai oneitako ikuskizunen aukeratzea, baiña ez deritxat lar onak izan diranik. Zer dala-ta «bezerrada» deitute jakonean sarrerak duan eta ez pelota jokoan?

Beste arazo bat: Iñoiz euskerazko jai edo festibalen bat izaten danean, au entzun izan dogu: «Zergaitik dagoz sarrerak ain karu?» Bardin, «Danok-bat» deritxen taldeak oraintzu ipiñi dituzan pelota jokoetara ere ez dau ondo erantzun erriak, zer dala-ta ori?

Nere ustez, ez dira izan karuak... erriaren alde jokatzeko ez dago dirurik, baiña whisky'gaz mozkorra artzeko ta beste gauza batzuetarako zenbat gura. Orrela dago Mungi'ko erria. Bai, asko mintzatzen dogu, au ta bestea ta araukoa, baiña, zer? Dana da asmakizun utsa: «pura teoria», orain artean beintzat. Noiz ipiñiko doguz eskuak lanean? Ezer egin gura ba'dogu ainbat eta len izan bearko dau!

Gaurko egunean, arazo asko dagoz zuzentzeko, baiña atan ere, batzuk beste batzuk baiño ariñago egin bear doguz... baiña, orain danok pozik: bota dogu geure urteko golpetxue ta datorren urtera arte. Bitartean ez dago zer-egiñik, zoritxarrez onela gagoz gaur. Zetan gagoz mungiarrak eta mungiarrak ez direnak?

LANDALUZE'TAR JOSEBA

oroimenez

URIONA'TAR BALENDIN'en, txirridulari ospetsuaren, gure adizkide aundia zan euskaldun jatorraren eriotzatik bostgarren urteurrena betetzen da. Ori dala-ta, bere lagunak, Meza bat eratu dabe, il onen 30' erako, goizeko amarretan, Mungi'ko San Pedro txadonean.

Meza ondoren, illerrira joango gara, Uriona zanaren illobian lora txorta bat jarri ta bere gogoaren alde otoitz egitera.

Bizkai'ko ta Euskalerri'ko kiroltzaleak eta batez bere txirrindularien lagunak an izango gara. Atoz zu be.

KONTU KONTARI

Euskalduna lurralde onetara nundik etorri ete ziraneko esamesak irakurri ditut, mundu guztiko gizon jakitunenak idatzitakoak atan be.

Batez be, gure izkuntzaren aldez, garrantzitsua deritxot; esan dodanez, mundu guztiko Ikastola Nagusietan jardun izan diran Irakasle azkar, Elejakintzan trebe ta Erri-arazoetan argi ta bikain diranen eta izan diranen eretxiak dakarzalako.

Lantxu ori, irarkolara eroan baiño len irakurteko aukera izan dot, bilkuna egin dauan adiskide bati eskerrak. Idaztune, «cita» sakonak dakarz. Orra bat:

«Euzkotarrok, bearkun aundi bat bete bearrean zagoze, auxe: Zeuen seme-alabei, zeuen izkuntza berezi ori ezartea, ezagutzen dogun mundu onetako zaarrena, ta zeuen gurasoegandik jaso zenduena».

Alfonso XIII'ak

(Oñati'ko Euzkal-Batzarrean, 1.918)

Orretariko eretxiak, berrogeitik gora daroaz.

Gaur egunean, euskera irakasten dan Ikastetxe Nagusien zerrenda au be ba-dakar: Oxford (Englanderran), Uppsala ta Lund (Suezian), Oslo (Noruegan), Berlin, Magdebourg, Munich ta Hamburg (Alemanin), Tokio (Japonen), Leyde (Holandan), Tbilissi (Rusian), Bordele ta Toulouse (Prantzian), Columbia, Filadelfia; Idaho ta Nevada (Ipar Amerikan).

Ni, lantxu au idaztera zuzpertu ninduna baiña, asikeran aitatu dodana izan zan, euskaldunak lurralde onetara nundik etorri ete ziranekoa, Ta erdi barrezka ta erdi zirikalari, neure eretxia azaldu neutson, neuk be, jakituna izan ez arren, neure eretxitxoak dodazalako.

Nundik etorri ete ziran euskaldunak? Sorkaldetik, Sarkaldetik, Egotik ala Iparretik?

Iñundik bez! —esan neutson—. Euskaldunak berton sortu ziran, beste lurralde guztietan bertakoak sortu izan ziran lez, gorrizkak, baltzizkak, zurizkak, orizkak eta abar.

Adan eta Eba'gandik sortu izan ba'giña, guk ikasi gendun lez, areik zurizurizkak ziralarik, margozka batekoak izango giñan lurralde guztietakuok. Orraitio siñisten dot, lurralde bakotxeko giroak, bere margozka zerbait ezarri daikiola edozeiñi. Baiña giza bakotxak norberan margozka eroan daroala beti, beste lurralde batera aldatu arren, orixe nik uste.

Eta neure usteari jarraituki, euskaldunak ementxe sortu zirala ta ementxe bizi izan dirala gaur arte —jardetsi neutson adiskideari—. Asikeran aitz-zuloetan gorderik al zan lekuan, eta gaurko aroan, al dogun lez. Ez dautzut esango ar-zuloetako aroan baiño obeto edo txarrago bizi garanik. Ez bai dakit, orduan zelan bizi izan ziran.

Au ba-dakit; ur-urrean aurkitzen dan auzo batetik bestera belbillean aldatzeko, zazpi orduren bearrik ez ebela; kontaminaziño barik, semaforo barik, kurtsulo barik bizi izan zirala.

Goiko jardun ori, beste lagun batzuek tartean zirala izan neban.

Biok soillik lotu gintzazanean, nire adiskidea zirikalari biurtu jatan esanaz:

—Orduan... euskaldunak emen sortu ba'ziran... zelan sortu ziran?

—Itxasoko ur bizietatik etorri zan gizadia. Bai jauna! Gure lurraldera ta beste enparau lurraldeetara be bai. Alguztidunaren indarrez, oori bai! Ez uste izan Txilibristok sortu ebazanik. Arek, Arek sortu ebazan, adimen berezia ta gogo onenetarikoa ezarririk. Arek egin bai euzan lurrak eta itxasoak, eguzkiak, izarrak, ta beste milloika aizea zear gagozan mundu guztiak. Gu bizi garan au, aletxo bat besterik ez da.

—Beraz... gu... itxasoko ur-bizietatik, e?

—Bai! Ur bizietatik; ur geldietatik tximuak, astoak, mandoak eta abar sortu ziran, (Charles Darwin'ek ezpaekian be), gaur sapaburuak edozein askatan sortzen diran lez. Au ikusiko zendun, neuk be ikusi izan dot-eta. Lenengotan, buru andiarekin, buztan luzearekin azaltzen dira, eta euren ordua garaitzean, lokatu, erantzi buztana ta lau ankan ganean urteten dira ur gelditik.

Eta neure burutapenok amaitzeko, esan dagitzutan: Gizon jakintsuek esan izan dabena, zeure idaztiño orretan jarri dozun ezkero, ¿ez al daikezu jarri, ez jakin onek esan dautzuna?

—Barre egingo leuskigue.

—Orretan nabil ba! Geu be orretarako obeak garalako!

ABELETXE

EUSKALDUN GIZONA...

Azkar gizendu ta berandu gizondu. Zori txarrez, alan da. Osasun on-onekuek ba-gara, gorputzez begiratu ezkero.

Ta zer suberte jaku beste osasunari begiratuta...? Beste osasun ori, nai dot esan, eta esan bierrik ezta, ba-dakizue dala kultura edo eskola-sendotasune.

Mai on-onetaraikuen beti, ori bai benetan: zeziño, sayeskixe, txuletie, billotza, ar-umie, dana dala, ona gutzet tripa-azala bete ezkero. Jaun Goikue lagun, da aurrera...! Gero, gerokuek. Tenziño, bixotz-lotue, paparreko gorapillue, ta atzeneko anka-tirie be... denpora baiño len.

Istorixa tristie, istorixa baltza, bai. Baiña egixe, benetakue dá, ta jatorriz dakagune atze denporan urrun-urriñetik.

Arri jasotzen. Arri eruten, Ariñga-ariñge, soka-tiran, burrukan... Eziñ sosigurik topa, aiñbeste jan ezkero...

NEU MUNDUEN...!

Ori esan eta aurrera aldan artien.

Estudixo, liburu zabaltze, irakurri, jakiñ, kanporutz begiratu, gure bizi ta izete-modu leundu. Olako gauzoi, jamanik pez.

Neuk beintzet eziñ ezelan be emon, onei milla eta milla urteko gora-bera kontuoi, baiben ona. Eziñ ezer esan. Orraitxiño bai gauza bat. Anai odolekuok, entzun: Nozipeiñen liburu onetik apu-apur bat IRAKURRI, naitxe porru-patatak edo berakatz-sopie jan.

J. J. ARRIZABALAGA

«MARKIÑA»

JAN EDANAK

Vaticano'ko Bigarren Kontzilioa bukatu ta andik laister, San Pedrok eta Goierriko baserritar batek, Zeruko ateetan, elkarrizketa au izan zuten

—Egun on. Bedorri izango da San Pedro?

—Bai. Zer gertatzen zaizu?

—Orain ordulaurdentxo bat, etxeko idi aundiak berealdiko ostikoa eman eta il egin nau. Ta emen nator Zeruan baotedagon neretzat tokirik edo...

—Izena nola dezu?

—Bedorrek bezala: Pello.

—Nongoa zaitugu?

—Gipuzkoarra naiz. Goierrikoa.

—Zenbat urte dituzu?

—Berrogei.

—Elizakoak artu al dituzu?

—Ez, jauna. Esan diot bat-batean il naizela, ta ez det ezertarako betarik izan.

—Ezkondua al zera?

—Ez, jauna.

—Orduan mutil zarra zaitugu?

—Bai, jauna.

—Ze, emakumeak gustatzen ez ala?

—Ez geiegi. Emakumeak asko gastatzen baidute. Ta agindu ere bai.

—Eliza'ren mandamentuak betetzen al ziñun?

—Bai, jauna.

—Guziak?

—Bai, jauna; guziak.

—Seigarrena ere bai?

—Bai, jauna.

—Ta zazpigarrena?

—Baita.

—Baita?

—Baita.

—Jan-kontuetan, nola ibilli gera?

—Ni ez naiz egundaño jalea izan.

—Zeintzuk ziran zure jaki arruntak?

—Azak eta babak, patatak, sardiña zarrak, arraultz bat edo beste...

—Zenbat bider jan dituzu angulak?

—Beiñere ez.

—Ta izokia?

—Izokia? Ori zer da?

—Ta edan, asko egiten al zendun?

—Ez, jauna. Ta beti ura bakarrik.

—Ura bakarrik?

—Bai, jauna; ura bakarrik.

—Ardorik ez dezu iñoiz edan?

—Bein edo bein soldaduskan nintzala bai, baño gaiñontzean sekulan ere ez.

—Ta, tabakorik erretzen al zendun?

—Ez, jauna.

—Ederra kontua!

Ta San Pedrok, burua azkatuaz, idiki zuan liburu aundi bat eta berari begiraditxo bat eman ondoren, esan zion Goierriko baseritar mutilzarrari:

—Barkatu, Pello, baña..., emen zuretzat tokirik ez dadukagu. Zeruko bide au utzi ta or beera Linbora-edo dijoan ori artu bearko dezu...

ANTONIO ARRUE

OROIGARRIAK

Igaro ziran oroigarriak noiz beinka idazteko, neri alako tinkadak ematen dizkit. Miguel Maura il zala Bartzelona'n, ia urte bete dira. Beonen eriotz berri izparringiak astindu zitun. Berpizteak ordea, nik eta bateze, nere emazteak dakizki onduen, beau Mc Tyure jaunaren etxian bizi izan zalako zortzi urtean.

Mc Tyure'n emaztea Malaga'ko alaba zan, beonen abizena, Larrea. Beraz, sendi orren abizenak; Mc Tyure-Larrea ziran. Nere emazteak, Larrea ain zuzen du bere lenengo abizena, naiz ta, ez izan senide.

Mc Tyure onen jauregia Edimbur'go, Eskozia'ko erridi aundi ta politean dago. Gure guda denporan bi neska azkoitikoak egondu ziran bertako langille bezela. Beraz, auek dakite onduen aien berri.

Jauregi ortara, gure guda denporan, euskaldun asko joaten ziran. Zergaitik? Esango ditut: Mc Tyure orrek ordun bai zitun bizpairu itxas ontzi. Une latz aietan, Bilbo'ra erbestetik janariak ekartzea, oso zailla zan. Ala ere, itxasontzi aiek sartzen ziran Bilbo'n, naiz ta inguru guzia itxita egon itxasoko miñekin. Erderaz «blokeo» deitzen zioten. Bizkai'ko goseak asetzeko, bateon batek ausi bear zun blokeo ura, ta, orra Mc Tyure bera bere ontziakin sartu ta orrela ausi! Bateze lur sagarrak ekarri zitun, patatak. Ura zala-ta, bertako kapitanari izen ordea jarri zioten «Kapitan Patatero».

Geroztik, Europa'ko guda eldu zanean, Mc Tyure'ren itxas ontziak gudarako artuak izan ziran, rekizatuak. Zer azken izan zuten ontzi aiek? Guziak galdu ta, Mc Tyure gizajoa, zearo txirotu «arruitatu» zan.

Baiñon, goazen aurrera. Beste asko bezela Maura bere emazte ta semeakin agertu zan Mc Tyure jaunaren etxean. Jakiña, onek ain biotz aundi ta zabala zuanez, lagundu zieten.

Mc Tyure aberatsa zanez, bai zitun itxas ontziak bezela beste negozioak, Paris'en eta Niza'n. Niza'n galtzerdiak egiteko lantokia. Izparringiak esan dutenez, Maurak zeukala lantoki ori. Ori ordea ez da egia. Lantoki ura Mc Tyure'na zan eta ez Maura izanarena. Mc Tyure jaunak, ikusirik Maura gizon aundi ta pamatua zala, berak zekin zergaitik lagundu zion. Geroko etorkizuna onerako izango zitzaiolako-edo.

Geroko berriak, gertakizunak ordea, ez izan bere naiak betetzeko... ta, dana dala, Maura'ren semeari, Mc Tyure jaunak, eman zion Niza'ko galtzerdi lantokian lana. Orrela dira gertatutako albisteak, eta ez izparringiak emen esan duten bezelakoak, alegia, Mauratarrak Nizan izan zutela beren lantoki ori, izanik Mc Tyure'na. Gauzak beren lekuan jartzearren ari naiz idazten.

Geroztik, Europa'ko gudak bukatu ziranean, urteak joan ziran. Zer gertatu zitzaion Mc Tyure jaunari? Galdu guziak; bere emaztea, Larrea anderea, il ta utzi Edimbur'go, Saldu edozela bere jauregia ta Londres'era joan.

Londres uri aundian, bein batez Zubizarreta azkoitiko apaizak ikusi zun. Mc Tyure'k ikusi zuanean apaiz jaun orri, inguraturik galdetu zion: «Barkatu jauna, baiñon, zu euskalduna al zera?». Zubizarreta apaizak, ura entzun zuanean, arrituta, erantzun zion «Bai, ni euskalduna naiz». Ordun Mc Tyure'k esan zion: «Nungoa zera?» Zubizarreta jaunak erantzunaz, «Ni azkoitiarra naiz». Arrigarria!

Mc Tyure'k berealan esan zion: «Nere etxean egondu ziran bi neska azkoitiarrak guda denpora, ezagutzen aldituzu? Beren abizenak auek dira; Larrea ta Larrañaga».

«Bai jauna bai, ezagutukoez ditutba...» Berealan eraman zun bere Londres'eko etxera. Etzan Edimburgo'ko bezelako Jauregia, pixu bat besterik. Antxe igaro zitun Zubizarreta apaiz jaunak orduak. Mc Tyure'k antolatuaz janariak ta biak igaroaz alkar-izketa mamitsuak.

Urteak dira gertakizun aiek joan zirala. Gaur egunean ez dakigu ezer, ta gutxiago, bere berri. Guda denporako gertakizunak ugariak dira, nola batekoak eta berdin bastekoak. Kristau bat arkitzen danean ezbearrean, beti sortzen dira olako laguntzak. Mc Tyure jaunak beintzat, lagundu zion makiña bateri. Izango al du bere egunean orren saria!

Nik emen idatzi nai izan detana ori da. Gauzak uztea beren lekuan, eta ez eman iñori ez diran berririk ta gutxiago ezkerrik.

E. OZKIN

KIROLAK

Olinpi-Jokoak

MUNICH

Amaika aldiz ikusi ta entzun bear dogu aurten Europa'ko uri aundi orren izena: MUNICH (doixeraz, alemaneraz, MUNCHEN). Zer dala-ta?

Olinpi-Jokoak antxe izango diralako. Dagonillaren 26'an asi eta Iraillaren 10'ean amaituko dira: aste bi iraungo dabe.

Eukiko dabe zer esana lurbira guztiko izparringi, irrati ta telebisiñoak. Orrelako gertakizun ospetsu baten aurrean, jakingarri batzuk azaldu nai ditugu aldizkari maite onen irakurleentzat. Deporte-zale ez diranak be atsegiñez irakurriko ditue, noski gure, jardun laburrok.

KIROLAK

Deporte itzak jolasa edo jokoa esan nai dau. Ba-dogu orretarako euskal-itz polita: KIROLA. Eta deportista esateko, KIROLARI.

Olinpi-Jokoetan ogeiren bat kirol-mota izaten dira... Baiña esan daigun lenengo, Olinpi izen ori nundik datorren.

OLYMPIA

Antxiñako Grezia aretan OLYMPIA eritxon erri bat zan. Ez aundia, baiña bai entzute aundikoa. Antxe aurkitzen zan Grezia'ko elizarik naguseina, ZEUS Aita Jaungoikoari eskeiñia.

Grezitarrak Jainko askoren siñistea eben, eta Zeus ori Jainko guztien Aita Nagusia lez gurtzen eben.

Eliza orrek emoten eutson Olympia erriari bere ospe ta entzutea. Ta antxe egiten ziran Grezia'ko jairik aundienak.

ANTXIÑAKO OLYMPIADAK

Aldi aretan, burrukan ibilli oi ziran geienetan grezitar erriak alkarren artean. Baiña jai nagusi orreik eldutean (lau urterik lau urtera izaten ziran) asarre guztiak alde batera utzi ta bertan ziran danak, jaiak alkarrekiñ emoteko.

Danetariko jaiak egiten zituen, bost egunean, bakerik ederrenaen, ZEUS Jaungoikoari esker ona agertuaz.

Jairik aundienak JOKOAK izaten ziran, Olympi-Jokoak. Grezi-alde guztietako gizasemerik sendoenak, bizkorrenak eta trebeenak antxe erakusten zituen euren indarra ta euren trebetasuna.

Jokoak, izan be, orretarako egin oi dira gizartean: indarra ta bizkortasuna agertzeko.

OLINPI-JOKOAK ETA EUSKAL-KIROLAK

Antxiñako Grezitarren jokoetan lez, gaur eguneko euskal-kiroletan be orixe agertzen da beti: indarra ta bizkortasuna.

Aizkolariak dirala, naiz arri-jasotzailleak, naiz korrikolariak, naiz arraunlariak... orretan saiatzen dira gure gazteak: ia zeiñek indar geiago izan, edo zein bizkorrago ta ariñago ibilli.

Orrelako jolasak, izan be, berez sortzen dira giza-artean. Edonungo mutikoak or ikusiko dozuez, ikastolatik urtenda, alkarren indarrak neurtzen: burrukan ba'da, nork nor lurrera bota; korrika ba'da, zein ariñago eldu orma edo zugaitz baterañó; indarka, zeiñek arri bat urrunago jaurti...

GREZIA'KO OLYMPI-JOKOAK

Olympia erriko jai areitan be, orrelako jolasak izaten ziran: oiñezko lasterketak, salto-egiteak, esku-utsezko burrukak eta abar.

Garailleak, irabazleak, ez eben diru-saririk jasoten (oraingo Olinpi-Jokoetan be ez), baiña bai ospearen saria.

Palma-orri bat emoten eutsen, eta buruan koroe bat ipiñi. Gero, bakotxa bere errira biurtzen zanean... a zelako ongi-etorria egiten eutsen!

Erri osoa biltzen zan irabazlearen omenez. Sarritan, arrizko irudiak jasoten ziran euren oroigarriz, eta olerkariak bertsorik onenak eskeintzen eutsezan... Gaurko gizonok be, lengo lepotik burua!

PAXA

(Jarraitzeko)


urteroko ibillaldia

Usansolo'ko talde bat, urtero joaten gara gure aberri kutunari ikustaldi bat egitera. Lotsagarria da, baiña zenbat dagoz gure artean atzerriko irudietan gogoz amorratuta, ta etxe barrukorik ezer jakin barik. Ta ezagutzean zelango poza artzen dan!

Usansolo'tik Loiola'ra, lenengo ekiñaldia. Txatal au, danontzat, guztiz ezaugarria, ta ainbat bider egiñikoa. Baiña, Errexil'dik gora joan ta gero, zeinbatek gure artean, gure Erri'ko irudi barri bat ikusi genduan.

Izan be, arrigarrizko ikuskizuna, Azpeiti'ko ibarra, eta bere albo bietako mendietan eskegita dagozan basetxeak.

Urrengo gelditzea, Elizondo'n. Baiña ara eldu baiño len, Leiza'tik goruntz, zenbat pago eder gure aizkolariak euren trebetasuna erakutsi al izan dagien. Baztan'go aranagaitik ez goaz ezer esatera. Naiko ezagutua ango barririk nik azaltzeko. Baiña ezin esan barik itxi an jazo jatana:



Geienak erderaz egiten ebela-ta, izkuntza orretan, itaunketa bat egin neutsan ikusi neban mutil gazte bateri. Artzaiña zan bera, Elizondo'tik bost kilometrora bere bizi lekua, ta nire pozez, berak eta bere errikoak ez ebela erderaz ondo ulertzen, ta itaunketa ori euskeraz egiteko erantzun eustan. Ez da au arrigarria?

Iruña'n egotalditxo bat eginda gero, Burgete'ra jo genduan lo toki bat aurkitzeko. Urrengo egun-sentirako, ainbat lagun giñan zutunik, baita Ronzesballes deritxen Orreaga'ra be joan-etorri bat egin oiñez. Irakurleok, joan-etorri ori oiñez egin ez ba'dozue, ez egizue galdu. Iñon pagadi ederrik ba'da, an ikusiko dozue; zugaitz ederrak eta zarrak benetan, eta zer esan an entzundako txori soiñuetzaz, egun-sentiari agur egiten?

Otxagabia, Isaba ta Erronkari, urrengo egotaldiak. Zein ederrago, zein ikusgarriagoa? Danon asmoan, beste joan-etorri bat egitea... baiña asti geiagogaz. Gure gidari zanarentzat, danak ziran zorionak.

Bat batean danon agoan: «Benetan ze gitxi ezagutzen dogun gure Erria»!

Bein Erronkari'n egonda, bere seme ospetsua zan Gaiarre'ri egindako illobia ikusi barik nor etorri? Xabier'era bazkaltzen, Leire'n ainbat toki maitekor gure begietan arturik lenago. Arratsaldean, Tafalla ta Lizarra'tik Gazteiz'era.

Ibilli-aldia amaitukeran, len esandako guraria biotz guztietan: Ezagutu daigun gure Erria, bera maitatzen ikasi daigun.

ATXUTEGI'TAR JULENE

"Etorki" ren Gora-Berak

Lima'n (Txile) Garagarrilla'k 21 garrenean idatzitako eskutitza jaso det. Bertan, Uruguay, Bolibia, Peru eta Txile'ko izparringi zati batzuek, «Etorki» taldeaz itzegiñik. Argentina'koak, norbaitek kendu zizkiolarik, ez dizkit bidaltzen.

Erri guzi auetan erabateko kritika onak eta, antzekoak izan dituzte ezin baiñan geiegi luzatu oiek azaltzen, aspergarria litzakealako. Montevideo'ko «El Diario», Uruguay'ko «El Diario Austral», Bolivia'ko. «La Paz» eta Peru'ko «La Prensa»k, atsegiñez aipatu ta aupatu egin dute taldea. Uri aunditxoenetan azaldu dira. Egokia dederitzaigu berezitzea Temuco urian emandakoa, zaarrak biltzen dituan Erruki-Etxe batentzat bai-zan biltzen zan dirua.

Argazki ugarien artean, onelako idazpuruak irakurri ditezke: «Conjunto vasco confirmó plenamente su fama internacional». «Extraordinario interés público». «El público premió con cerradas ovaciones la alta jerarquiía del espectáculo». «Exitoso debut vasco». «Colorido espectáculo». «Los instrumentos autóctonos... han revelado al mundo los valores culturales del milenario pueblo vasco...»

«Ba-nun», esaten dit, «aspaldi ontan idazteko gogoa. Buenos Aires'en asi nintzan baiñan ez nuan bukatzerik izan. Amar egunetan izan ditugu emen emanaldiak, eta gaur atseden eguna degula, ongi datorkit zuri idazteko. Atzo bertan emengo euskal praille dan Aita Domingo Elortza, galdezka etorri zitzaidan, galdezka, ea ezagutzen nuan «Uxola»; nola ez bada!, nere laguna, obeto esateko, etxeko naiz-ta... orduan erakutsi zizkidan zuk idatzitako bi artikulo. Eskarrikasko!»

Luze xamar egon dala idatzi gabe, naiko lanak izan bai-dituzte ango euskaldunek egin dieten arrera-on, jai eta otorduetan emengo gauzak aiei kontatzen eta aiek bixitalariei zer-nolako bizimodua daramaten ango euskaldunak agertzen. Baiñan idazten asi danean, luze idatzi, Brasil'eraiño joan zait ostera ixtoriari bere aritik jarraitu nairik. Eta ara nola gauz kilikagarriak azaltzen dizkitan, batez ere tolosarrei, Rio de Janeiro'ko Iñauteriaz mintzatzen bai-zait.

«Rio de Janeiro'ko izan genituan aktuazioen ondoren, aste beteko atsedena artu genualarik, Iñauteri txiki bat ikusteko egokiera izan genuan. Larunbat Santu egunez ospatzen da, eta bestearen berritze bat da. Jai aundi-aundia da, baiñan neretzat, tolosarra ez naizelarik ere, Tolosa'ko Iñauteriak ez du ezertan onen inbiririk. Aundia-aundia da jende multzoari buruz. Baiñan Rio'k lau milloi biztanle ditu. Or koska! Ori bai, Rio uri polit-polit bat da, eta emakumeak... pegakorregiak, azkenerako aspergarriak. Ezin bidali ondotik».

Gero, Uruguay'ko gauzak aitatzen dizkit. Tupamaroak, ixtilluak eta abar... Urrengo idazkian azalduko, baiñan, zer bizitu duten...

UXOLA

ONA ta RAM

EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

Eztabaidan

Gizartetasuna, batzuentzat sozialismoa, zer dan ta nola iritxi, arazo auxen darabilki CFDT'ek 1970'gngo Garagarrilla ezkeroz, au da, bere XXXV Batzar Nagusia ezkeroz. Onegatik jarri zan artu-emanetan F. E. N., F. O. eta C. G. T. sindikatoekin, batez ere azken onekin, biak diralako Frantzia'n sindikatorik indartsuenak.

CFDT'ek, «Syndicalisme» aldizkarian, batzar orretan artutako erabakiak, oarrez bezela galdetzen dizkio CGT'eri, oiñarri izan ditezen batasun baterako. «Syndicalisme»k, bide batez, batasun onetzaz CGT'ek egindako gutun osoa dakarki, bi joerak txit garbi ikusi ditezen.

Zertarako eztabaida auek? CFDT'eko idazkari nagusi dan Edmon Maire'k onela argitzen du: «Ez degu onekin besterik billatzen, ez intelektualkeri baten pozgarririk, baizik bide bat gure pentsa-moldetan bertaratzen joan gaitezen, ea langilledi mota guztiak gizartetasun errikoi bat arkitzen degun».

Sindikato bakar bat lortzeko ametsik ez du egiten Maire'k. «Egizko batasuna —dio— ez datza errena litzakean erabaki bat artzen, baizik gure artean ditugun aldeak eta eztabaidak gaintzen, bertaratzen, baiñan iñolaz ere ez baten garaitzarekin eta jauntxokeriarekin ta besteen zapalketekin».

Baiñan emen, une ontan izketan ari diranean, Frantzi'ko Alderdi Komunistaren Agintari dan André Vieuguet, ez dagokionean sartzen da, alde batetik CGT sindakalismo alkartea bere menpeko duala itxu ez daudenei agerraraziaz, batasunetik urrutiratzen diran itzok esanaz: «CFDT (sindikato kristaua) erreformismo baten ta ametsezko anarkismoan oiñarritzen diran ideiak darabilzki». Erreformismoa eta anarkia alkar uztartzerik ba-luteke bezela.

1971'gnean. Angers'en egiñikako Batzar Nagusian geiago argitzen du CFDT'eko Idazkariak: «Guk, iritzi batzuek eskeiñi ta galdera batzuek egin genizkion CGT'eri, alkarrizketan asteko. Baiñan emen sartzen da agintari, Frantzi'ko Alderdi Komunista. Emen, Batzar batean, jaun lengoak eta George Marchais jaunak, ezezkoa eman zioten CFDT'eri, marxismo-leninismoeren «zientziaren» izenean, berezko-agintaritzari eta agintze-banaketari. Baita, sektarismoaren egun berezienetan antzera, itxusitu zuten CFDT'n jokabidea: anarki amets utsa, erreformismoa eta batasunaren etsai bezela. «Ez zuten baiñan argitzen nolaz ezkondu ditezkean gauz biok alkarrekin.

Eta ara or koska! CFDT, sindikal alkartea danez, ez du onartzen bere gauzetan iñolako alderdi politikorik sartzea, naiz eta komunista izenez etorri. CFDT'en ustea da, berezki sindikatoek eraman bear dituztela lantegietako langilleen arazoak, naiz eta komunistei iduritu berak dirala langilleen ikurriña nagusigoki daramatenak.

CFDT'ek ongi ba-daki betidanik komunisten elburua beren agintea ipintzea dala, aginte osoa, goitik berakoa, naiz besterik esan, estua, sindikatoak galeraziko dituana bere bakarra ezarriaz, auteskundeak ontzat ez emanik egizko demokraziari uko egingo diola, gizakiak makiña edo tresna batzuetan biurtuko dituala edozein P. C.'en abotsen aginduetara.

Eta au egi aundi bat dala, CFDT'ek eta guk ere ba-dakigu. Komunistek ez dute beren aginterik baiño nai, ez beste langille alkarterik. Ain ziur, igaz, Viet-Nam'go sindikato alkartea dan CVT'eko batzokian (CFDT eta CVT alkarteak, Confederación Mundial de Trabajo, len Kristau Internazionala, sartuta daude) bonda bat ipiñi zuten, ta bere lendakaria dan Tran Quoc Buu ozta-ozta bizirik gelditu zan. Viet-Nam'go langilledia ain zigortua dagoala, jazatzen duten guda zital orrengatik, Saigon'go langilleak gaizki ikusi zuten gaiztakeri ori, eta asarre azaldu ziran kalean manifestazio aundi batean.

Zoritxarrez obekiago dakigu danok ere, berak agintzen duten «Batasunean» ikusi nai gaituztela, berak artzai eta otso, eta gu arkume apalak. Enbutuaren demokrazia opa digutela.

Idazki oni bukaera ematen ari naizenean Frantzia'n Frente Popular bat ipiñi dala irakurri det. Frantzi'ko P. C.'ko idazkari nausi dan aitaturiko Marchais itzjario, ajolarik gabe alkartzen da Mitterand sozialista-marxista «desviazionistarekin», esan degunez berak agintzeko itxaropena ikusten duanean.

OLAZABAL'TAR XABIER

Ta, Guri Zer?

Ta, bai, guretzako be ba-da or zerbait.

Oraintxe bertan, irratitik entzun dogu, ta iñoren auzietan zer ikusirik ez ba'dogu be, ba'litzake orren ondorenak gure izatearen edo etorkizunaren bidean aurkitzea, ta zalantzarik barik olan izango da.

Chaban-Delmas bota dabe, edo Pompidou'k bota dau; orrenbeste esan daikegula uste dogu. Baiña zergaitik?

Ez da izan, ez, atzen orduko batera-ezetortea bakarrik, au izan ba'da be etena osotu dabena, ta gu, etorkizunean, geien arduratu bear gaituana. Aurretik, bi edo iru urte aurretik, Chalban'en izatea gaullista zarren artean gaitzetsia izan zan. Ala ta be, iraun al izan dau, gizon au, bearrezkoa eben euren eskumakeri larregia estaltzeko. Arrezkero baiña, ezkerrak alkartzen joiazala, eta burruka gogorra egiteko gertatuten, ez zan Chalban ori bearrezkoa, edo obeto esateko, eskumatiarrak euren indarrak bildu ta burruka barrira azaltzeko, oztopo.

Engalandarrak beartutzearren, Pompidou'k eta bere gaullistak asmatu eben auteskunde orokor edo erreferundun aren ustel urteteak be kezkatu ebezan, ta Chalban'i ezarri nai izan eutsoezan erruak, baiña errudun besteak izan; erriari Europa'ko batasuna dan gozokiña eskeiñi ta bitartean orren gozo ez ziran beste gauza batzuk onartu-arazteko auteskundearen porrot egitea. Gero, diru auzia, atomik saioen ezin osotzea, baiña danon gaiñetik edo atzenean ontzia gaiñezka jarri daben tantan aunditxoa, Urrillean Europa'ko laterriburuak egin bear eben batzarraren uts egitea. Ta emen ikusten dogu gure etorkizunaren bidean aurkituko dogun koskea:

Ia ziur esan daikegu, guk beintzat aspalditik ikusi dogu: Paris'eko jaurlaritzak, ta ez diñogu Prantzi'ko erriak, arek ez dau benetan maite Europa'ko errien alkartzea; gaur lokarria luzean joaten itzi, biar atzera laburrean lotu, Europa'n nagusi izatea dabe maite, euren izatetik, laterri lez, ezer emon barik.

Ta jokera orrek jarraitzen daben artean, ez da izango Europa'ren benetako batasunik; ta urteak aurrera doazala, besteak be, beste laterriak, eta beste politiko ta gizarte alderdiak be, beste bide batzuen billa joaten asiak dira; Europa, orain arte lez, lur zati baten izena izaten jarraituko dabela, ta ez besterik, zoritxarrez, eta prantzes batzuen berekoitasunez, lortuko da.

AIXOLA

INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

GUDA ZITALA

Egun gorriak ziran egun aiek...

Erri osoak, euren apurrak bizkarrean, kamiñoetan zear, nora ez zekitela... Geienak andrazko, ume eta agureak ziran... Gaztedia ta gizaseme gordiñak menditik zebiltzen, armak eskuetan...

Anai-arteko burruka beltz igingarria.

Guda legorra. Odolez gorri. Bekaitza biotzetan. Begietan, berriz, malko mingotzak...

Gose ta egarri.

Bero eta otz.

Aterperik eza... Kamiño baztarreetan, lo...

Mendietan, erio zital jaun da jabe...

* * *

Iru arrasto ori esku-muturrean:

—Etorri zera berriro, Perikoena...?

—Bai, gizona, Makiña bat egun larri pasa dugu.

—Nundik zatoz...?

—Monaleko aitzetik.

—Araiño eldu zerate...?

—Neke ta odol-izurte ugari bitartean...

—Ainbeste...

—Odolez ditut eskuak zikindu...

Begiak zituan larri, beuren zulotik irten bearrean... Barruko larriak eragiten zion mingaiñari... Itz-jario gendukan gau artan... Patarretan barruko arra ito nai.

Taberna zuloan geuden.

Barru-barruko korapilloa askatu nai... Karga aztuna estomago-zuloan... Gonbito-larria ta nora-ara bota bear zikiñ oiek...

Ni gerta nintzan zikin-zulo.

* * *

—Zazpi illebete dira emendik alde egin genduela...

—Zazpi illebete luze!

—Zuk es dakizu ondo...! Negu osoa mendian aterperik gabe... Euria ta bisutza, elurra ta kaskabarra... Ezurretaraiño buztiak... Otza ezurmuiñetan... Izotza animaren biotz-erdian... Eozkor eta legor... Espirituaren toloste izkutuenean gure aingerua illik... Deabruaren menpean...

—Zer ari zera...?

—Guda anker zital onek maitasuna antzutu digu biotzeetan... Pizti nazkagarrien antzeko egin gaitu...

—Ez dizut tutik entenditzen...

Gerratean ezagutu nuen Perikoena... Ezaupidea bai, besterik ez genduan alkarren artean; beartuta egin bai ninduen euren mendeko ta arrituta nengoen aren neri esan-bearrarekin...

Begiak zituan urruti, irten bearrean, ezpaiñako ertzat txistu-aparrez biboteko illeak dardar batean: ames-larrian erortzeko puntuan:

—Aizu, etxekoandre, kopa bana patar ekarri eiguzu, onentzat eta neretzat, bere onetik irtetzera dijoa-ta...

—Utsunean erori nai nuke ta, an illunpeetan, nere burua izkutatu ta galdu...

—Zer ari zera...? Zer duzu...?

—Ezin dut burutik kendu...

—Zer da, baiña, burutik kendu bear duzun ori...?

—Zera, Monaleko ura...

Arpegiko giarrak eten-bearrean zitun... Zimurrak ugari goitik beera ta zearka, sakon eta luze bekoki ta matrailezur inguru guzian...

Tinko.

Leertzeko zorian...

—Zubi-ondoan giñan, gure buruak erreka-ertzeetan gorderik, oiñak udetan... Egun-sentiaren argiak, sutautsaren kolorea galduta, urdiñez jazten ari zan... Txoriak beuren eztarriak garbitzen egunari agur egiteko... Baztar guzietan Udaberria nabari, geure biotzetan ezik. Mendi arren erpiñean, aitzaren gaillurrean genduzkan begiak josita... Goi artan ba zan ezer... Guk ez jakiñ, ordea, zer.

—Zenbat ziñaten?

—Giza-seme asko. Bat-batean kañoiburrunda aidean... Mendi-inguru guzia, sutan... Ke-mordoak, perretxikoeran antzera, sortzen ziran gaillur artan kañoisoiñu bakoitzeko... Ondoren ogeita amar egazti zaar aitzeen-muiñotik zear beuren bombak ustutzen... Baillara guzia zarata-oiartzunez bete zan ta izkanbilla arretxek lasaitzen zigun biotzeko korapilloa... Nola argizari itzal-berriak keia darion, ala millaka kandeleen keia zeruruntz Monelako aitzeetan gora... Izugarrizko zurrumurru arren ondoren, ixilla... Txoritxuak izu ta mutu... Egun berria epel eta ixo... Errekako ur gardenak marmarioka itsasoruntz... Beste otsik ez zan inguru guzian...

—Ta zuek...?

—Gu? Mendi-tontorrera begira... Bizirik ote zan iñor...?

—Luze iraun zuten bonbardeok...?

—Kañoi ta egazti ordu pare bateko lana egingo zuten danetara... Turutak urratu zuan ixil-aldia. Jeiki nintzan lurretik, ta mutillak ondoren nitula, ekin diogu mendi-egaletik gora... Ez zan ezer ikusi, ez sentitzen, Amesetan ba geuden, ametralla dora batek esnatu ginduzen: ta-ta-ta-ta-ta-ta-ta-ta... Ondoren, garrasia, zantzoa, madarikazioa...

—Ta...?

—Lurrari josita gelditu giñan, alzuanak alzuan tokian... Laparik ez aitzari eldu sekulan, gu lurrari eldu giñun bezela... Oraindik ere, bizi dituk madarikatu oiek... Burua jasotzen zuen guztieri zuloa egiten zioten txapelean... Belar-izpi batek egiten zidan kili-kili sudur-zuloetan... Ama lurraren babesak gordetzen ninduen... Lurraren usaia bai usai gozo maitekorra: lur-ikara batek azpia jango ba ninduke...? Orduantxe sumatu nuen lur-erdibitze baten ikaragarria...! Lurrak bere segurantza galtzen ba'du, egin dute gizonaren ziurtasun guziak ere... Lurraren ziurtasunak ematen dio gizonari bere segurantza...

—Luzaro egon ziñaten orrela...?

—Ordu luzeak igaro giñuzen lurren gaiñean etzanik... Iñularrean, turuta otsa berriro: errekara berriz ere izkutu ta gorde-leku billa... Gaua, ibai magalean, izarreri begira... Amabiak inguru izango zan illargia mendi gaiñetik agertu zitzaigunean... Il-gora... Izotza... Ez jan da ez lo... Erateko, ura errekan... Esku-oiñak gogortuta; burua galdatan... Ames eta esnai, lo-kuluska batzuek egin nituen... Eguna zabaltzeko bildur... Bildurrakin batera, zer edo zer, zirt edo zart egiteko irrika... Goizaldean, kaiñoiak eta egazkiñak atzo baiño areago: Monaleko aitzak inpernuko ate...

—Ta, lagun berririk...?

—Bai, oste berriak eldu zaiakigu bart: batalloi geiago... Bota gaituzte guziok, bata bestearen ondoren, mendira... Maldan gora eldu gera mendi erdiraiño... Lurraren kontra arnasa apur bat artu ta, gora, mutillak...! Eun metro egiterako amaika lagun galduak dituguz gure alkartekoak... Ogeita amarretik amaika galdu ba duguz daoneko, zeiñ elduko da goiraiño...? Egurdi-eguerdia da. Eguzkiak berotzen du nolabait ere... Arri onen atzetik artu dezadan atseden pixka bat... Eguzki epeletan tiroak alde guziztik... Zeiñ ederra den bizia! Nik, ordea, bizitzarako itxaropenik ez. Etorkizuna beltzez jantzika agertzen zait begien aurrean: orma beltz aundi bat igaro eziña... Etorkizunak, nere etorkizunak itxaropenik ez... Eguzki dirdiratsu goxoa gorputz azaletan; gau beltz illuna biotzaren erdian... Arrixkuan gaude denok: kañoiak ekin diote berriz goiko armaillara... Egarri naiz... Ai beko ur gardena ba'nu edateko...! Sukarra odolean ta txorabioa buruan... Gora bear degu, gaillurreraiño! «Goraiño, mutillak»! Jeiki naiz ero baten antzera ta ba goaz goruntz... Jeiki ta etzan, etzan da jeiki, beti babes baten billa... Tiroa emendik, tiroa andik; esku-bondak arrika nunnai... Eldu gera goraiño; gure etsaiak igesi dijoaz... Gurea da garaipena...! Gora gu ta gu tarrak...! Aurrean, zangazuloa argalkeritik indarrak atera ta, salto batea, pistola eskuan, sartu naiz barrura:

—«Confesión!» deadar etsai eri batek.

—«Que te confiese tu padre!» Ta bost bala sartu niozkan buruan.

Nere lagun onek arnasa barru-barrutik artu ta arpegiko tinko lasaitu zaio, burua makur...

Etsaiari ukatu zion konfesioa berak bear, gizarajo onek. Ba-du bere bizirako naiko atsekabe...!

A. ARRINDA

ERRIETAKO BERRIAK

Ondarru

Bagillaren 30'an amaitu da antxobadia. Beti lez, batzuk arrantzu ederrak egin dituez eta beste batzuk ez ain ederrak: olantxe dira itxosoko gauzak.

Edozelan be, naita sarritan antxoba askorik atrapa ez, azkenengo urte oneitan arraintzale asko antxobiaren ikaragarrizko prezioak salba ditu: ñoiz saldu izan da antxobia 64 pesetan, Kofradiako «bentan».

Aurten, Ondarroa'ko portuan, guztiz 3.835.000 kilo antxoba sartu dira. Igaz baiño 159.150 kilo geiago.

Bataz-beste aurtengo antxobiaren prezioa 40 pesetan ipinten ba'dogu, onek esan nai izango leuke Ondarroa'ko portuan 153.400.000 peseta sartu dirala. Igaz baiño berrogei milloi geiago.

Orain gure arrainzaleak euren txalopak atunetarako gertaten dabiltz, beti asmo ta ilusiño barriekin, urrengo kanpaiñia joan dana baiño obiagoa izango dalakoan.

Laster urtengo dabe atunetan edo atun «naixan», asko Canarias'etako puntaraiño. Suberte on bat izan dagiela. Boga, boga, mariñelak, joan biar degu urrutira, bai, Canarias'etara.

GARITAONANDIA

Arratia

Gaur egun etxean dogun arazo zitalak aspaldiz kezkatuta naukalarik, sator-illunzale baltzaren bizilekua, batzartokia ta lurpeko bideak noraiño egiñak ditun ikasten ari izan naiz; baita alako lurrelisti edo topografi antzekoen bat be marraztu izan dot, naizta emen ezin agertu, arratiar iñozoak jakin dagien.

Somosierra bera be azpi-azpitik zulatu ondoren eta Madril'eraiñoko azpi-ibiltea egin, azaleratu an egiten dala dirudi. baita arnasbarritu be.

Andik Ipar-Euskalerri'ra txutxu-mutxuak egitera eta, azkenez, Bidasoz emendiko landara, «batasunaren eta erderantoaren zina sakratuaren pean» artaldea zurikeriz otso gosearen ortz zorrotzetara eroatera, eramatera.

Ba-dogu, ba, zer ikasirik eta zer jasorik, eguneroko txirrinean ibilterik nai ba'dogu bai beintzat, Goiz-Argi'tik, Karmel'dik eta Agur'etik.

Itxartu ta esnatu adi, ba, euskotar epel ori. Eta dei dagiat, baita iri be, egunaren argitara, arpegia agertzeko bildurrak eraginda bizkarra emonik igeska abillen orri.

* * *

Zeanuri'tik Urkiola'ra.—Senar emazte ezkonbarriak Andoni deunagana doaz basozbaso; garo, bedar eta iñontzarteetatik. Emaztea doa aurretik gona luze magaltsuei beeak ez bustiteko, gora egiñik.

Aurre urruti batean, bidearen ertzean, ezagunen batzuk gosalduten ziarduela ikustean, senarrak emazteari: «Jatsi egizuz gonok, arren, belaunburuak ikusiko dautsuezan baiño len».

—Zer, ba, zikin dodaz ala...?

—Zikiñik, ez, baiña... eneuka iñon entzun gura zure etxaguntza zabal-ederragaitik zugaz ezkondu nintzanik.

* * *

Bilbo'tik Ataun'era ta Ordizia'ra, Apalategi adizkide miñari: Arrate'n aitaturiko ataundarra, Aleiberri baserriko semea dek, Ezkizabel'tar Juan. Ire etxe ortan, TXINDOKI ospetsuan, iñoiz txurrutak egindakoa.

LANDAJUELA'TAR A.

Tolosa

«ABELETXE»'Ri

Belarri biak moztuko zenizkigula esan zenuan bein, zure bizkarretik par egin nai genuala-ta. Norbaitek, gaiztoz esango zizun guk esan degula ez zerala gauz euskal egunkari bat aurrera ateratzeko. «KAMIÑAZPI»'k eta «BASA-JAUN»'ek ez dakit, nik baiñan pozik jarriko niztuzke nere biak... euskal eguneroko orretzaz diozuna ekintz biurtuko ba' litz... naiz eta naizen baiñon itxusiago gelditu, belarrimotz.

AURRESKUAN, TXISTU

Bai, baiñan bestelako txistua. «Udaberri» taldekoak dantzan, eta neska txak ekartzean «sombrero cordobés» eta emen larros gorri aundi bat zeraman neskatilla. Jendeak, txistu. Eta, gero, fandangoa jotzean neskatxak dantzan jakin... ez eta berealdiko beste txistu jotzea.

Neskatilla suizatarra zan ta au ere Andaluzia zala iduritu, baiñan egiz Andaluzia'n zeudenak... «Udaberri'koak.

Askoz garrantzi aundiagoa zuan urrengo eguneko egitarau-orrian «H» bat edo beste eta alako itz «arraroren» bat sartzea. Esate baterako, «paseo», euskeratuta: «boastitzea». Nork ulertu, erderazkoa izan ez ba-genu? Eta, nundik dator? Iritziz oker ez ba-nago frantzeraren «voyage»etik, frantzez euskeratua. Ea, mutillak, datorren urtean Pompidou'ri deitu beste afrantzezatu «orrek» baiñon frantzez geiago zekik-eta... filosofiaz aparte, noski.

JAIAK ITZULIPURDIKA

Edo euskera batuan (?) «desastre autentikoa». San Juan sua pizteko orduan, gabeko bederatzietan, enparantza beribillez bete-betea, nun sartu jandea? Beribillak presaka ken arazi. Eta piztean... egurrik ez, ekartzea aaztu. Presakago egur pilla baten billa. Zezenak ordu bete beranduago asi eta, onegatik, aurreskua ere agintariei itxoiten beste ainbeste denbora, illuna alboan genuala.

Udaletxeko txistulari taldea «ipso facto» ezeginda, «Udaberri»ko gazteak txistulari. Batzuentzat jatorki, besteentzat eskirolki. Lezea txistulariari eta Lope eskultoriari omenaldia izan eta Lezea azaldu ez. Estropadetan, naspil ikaragarriak eta asarre bideak sortu, diotenez kronometradoreak bai, baiñan geienik bear zanean «jurado» bat jartzea ere aaztu.

Eta jendea asper-asper egiñik. Ez da arritzeko.

DAN-DANA EZ TXAR

Atsegiñetan entzun genion, beintzat, Leidor Abestaldeari beren saioa: «Agur Jaunak», «Kukua», «Oh, Pepita», «Oles eskonberriak», «Kanta-Berri» eta «San Juan Zortzikoa». Zorionak, eta jarrai.


Atsegiña ere pelota-lekuan «Udaberri»ren euskal saioa. Endañeta eta bertsolariena. Baita, perian, tokalariena eta bolariena.

EUSKALTZAINDI'KO LENDAKARI

Erletegi burrundara baiñon zabalagoko otsez entzuna det Goierri, Andoain eta Pasai aldean, urrengo lendakari nor izango. Konsigna bat bezela dabil, beintzat, gazte berezi batzuen artean, Kintana baten balioa. Eneee! zenbat dakin! Lerdea dariola egoten zaizkitzu au goraltzen Esaten dutenez, filoloji azaroetan Mitxelena bigarrena omen ta Mitxelena'k zubi baten bitartekotasuna egin dualarik bere aroa igaro omen da ta, onegatik, berau, Kintana izango omen urrengo lendakari. Jose Intxausti, lendakari ordeko. Bulegoladore, Aresti.

Ote liteke?

UXOLA



Zeanui

Jon Deunaren aurre egunean, aurten be sanjuansuak edo suaiñoak egin dira gure erri onetan, baita txistu-soiñu alaiak entzun su onen inguruan, errian doguzen txistulari jatorrakandik. Zorionak gazteak.

Bagillaren 25'gnean, «Los Rios» aldizkariaren zabaltzaille garanok, Bizkai'ko errietan, Urkiola'ratu giñan. An izan ziran Bermio, Ondarru, Durengo, Zeberio ta beste errietakoak; lagun barriak egin genduzan. Baita Estonba jaunari be zorionak eta agurrak emon, ain euskalduna dalako.

Bilbo'ko Urkiola-lagunak be, euren eguna izan eben. Ordu batetan Mezea izan gendun, eleizea jentez beterik. Ondoren aurreskua eleizondoko zelaian; gizon bizkorra zan dantzari ori, aspaldian ez dot ikusi olakorik.

Urkiola, ba, euskaldunentzat txoko berezia dogu. Aita Mitxelena'k Arantzatzu'ri jarritako olerkia, Urkiola'ri be ondo etorriko jako:

Ames-kabi otoitz leku
Euskalerria oso-osorik
Kantari dijoakizu.

Senitarteko alkarte bat dogula bertan esan lei, ainbat erritar, ainbeste denporan ikusi barik geunkazenak, agurtu genduzan. Barriztatzen edo atonduten dabiltz inguruak, zelaitu, zugaitz barriak, urki landarak jarri dabez, Baiña kezkatsu agertzen zan Manuel jauna, apurtu egin ei dabez batzuk. Mesedez onelakorik ez egin: batek egiñiko lana ez beste batzuk ostikopetu!

Eleizea barriztutzeko asmoa be ba-dabe, apurka dana egingo ei-dabe. Ta aizenez, eskari au egin geuntson Antonio deunari: lagundu daiskula egiazko euskaldunak izaten.

Orain, Urkiola'ko AGUR'tarrai eskaritxo bat: neurea egin dot eskua mindu arte idazten, eta zuek ni baiño jakintsuago zaree ta sarriago idatzi aldizkari onetara. (Au AGUR'en jarri dogu: Baiña nor Prantzizka lakoa? Ezta urrik be!).

Otxandio'tik pasakeran, Zelaieta baserri aurrean, gure aitita zanarekin gogoratu nintzan, euskaldun benetakoa zan bera. Zenbat bider, umeak giñala, liburu oñeixek ekarri euskuzan, euskeraz irakurteko: Kresala, Amezketar Pernando'rena. Kirikiño'ren Abarrak, baita Otxandio'ko santugiñe zan bere koiñatuaren, Arrese-Beitia'ren olerki txorta asko buruz ikasi genduzan.

Ez ete-dautsot zor berari Euskerea'ri dautsodan maitasuna? Baietz uste dot!

GORBEITARRA

Galdakano

OPORRAK

Beste ikasle guztiak legez, euskera ikasleak be oporrak artu dabez, bai gure ikastolako umetxoak, baita ertxadon nagusiaren aldamenean Agirremalloa'tar Xabier apaizaren eta beste irakasle batzuen irakaskintza pean luzaroan iñarduen gizon eta emakumek, zaar eta gaztek, ikasle talde ederrak.

Irurogeiren bat izan ziran ikastaro ori asi ebenak, ainbat emakume. Ta, berrogeitik gora izan dira osorik amaitu dabenak, aurrerakuntza andiak egiñik. Orretara izanik, itxaropen andia dabe urrengo ikastarorako, errian gure izkuntzarentzako artu daben zaletasunagaitik. Urrengo ikastaroan ikasle geiago izango ei-dira, ta oraingoetatik aurreratuen seiren bat, Derio'ko Apaizetxera bialdutekotan dira, laguntzaille izan daitean gertuteko. Txalogarria benetan aurten lortu dabena. Gure zorionak guztioi AGUR'en bitartez.

EZBEAR GOGORRA

Izan eban Bagillaren 30'gnean, eta beraz eriotza, Enzunza'tar Ander, irurogei ta bederatzi urtedun gizon zindoak. Batetik bestera bitxabala igaroten joiala, Bengoetxe'ko auzonean, berebil batek jo eban ta bertan erail.

Ander au, gizon zintzo ta euskaldun garbia genduan, beraz auzokide ona baiño obea. Jaiotzaz Errigoi'tarra ba'zan be, urte askoan gure erri onetan bizi zalako-edo, galdakanotar jator bat geiago zana. Goian Bego auzokide maitekorra, ta benetan lagun gaitue atsekabean bere emazte, seme-alaba ta sendikide guztiak.

ALDAKUNTZAK

Bai, aldakutzak izan doguz egunokaz erriko txadonetan, ta batez be ertxadon nagusian. Garil onen lenengo igandean, txaunburu Arrinda'tar Jon-Mirena argi azkarrak agurtu gaitu, urte mordo baten erriko eleiztarron poztasuna izan danak. Berak nai izan dabelako edo bere goikoak joanazo dautselako, Algorta'ko Iñaki Deunera eroan dauskue txanburu. Benetan, zorionak opa dautsaguz, apaiz izaten dakian jaun agurgarri orri, ta bear dan tokian ortzak erakusten be bai.

Jon-Mirena jaunak itxi dauskun utsunea betetako, eta berak baizen ondo beteko dabelakoan gagoz, Onaindia'tar Jon apaiz gazte kementsua ta euskaltzalea izan ei-da izentatua, ta lerro oneik argia ikusi dabeneko, geurean tzango ei-dogu. Ondo-etorria izango al-da; galdakanotar gustiok besoak zabalik artuko dogu. Eragozpenik eta oztoporik aurkituko dozuz Jon, batez be azpikeriz atzerrira begira bizi diranakandik, baiña ez kikildu, benetako laguntzailleak be izango dozuz zeure aldamenean-ta.

Ikaslea izan zanetik, ez dogu geiago ikusi al izan Jon jauna, beraz ez dakigu ezagutuko dogun, ezta zelangoa izan dan bere apaiztza, baiña naikoa da zein senditakoa dan jakitea, zintzoa ta azkarra izan bear dabela esateko.

Baita, laster, bear bada idazlantxo onek argia ikusi dabeneko, beste abade barri bat be izango ei-dogu erriko txadon nagusian, eta euskaltzalea gaiñera. Ea urrengo baten esaten doguzan bere izan eta beste zertzelada batzuk. Apaiz onek, Zallo'tar Joseba-Koldobika'k itxi daben utsunea betetako ei-dator, beste au Zuatza'ko (Galdakano'n au be) txanburu izentatu dabelako.

Gure zorionik beroenak guztioi AGUR'en bitartez.

BASA-JAUN

Zestua

SAN JUAN EGUNA

Naiz eta leen guk, gaztetxoek izan giñan garaian, eta baita aurreraxago ere, San Juan'go ermita zala-ta, jai izaten genduan. Aspalditxotik gaur-egunera, jaialdi au, galdua zegon. Baiña, aurten 23'an San Juan aurreko egunetik asita, elizatxoa berritzea dala-ta, oso jai bikaiñak eratu dituzte.

San Juan eguna alaitsu agertu zitzaigun, batetik su-zirien botatzea, eta bestetik, kanpai otsak: eta nola ez! txistularien kalejira ta «Banda Union Cestonesa»ren eresi-aldi alaiak.

Ermita berritzearen onespena, errimezarekin asi genduen: meza-santu onen zuzendari, Argaya gure gotzai agurgarri, eta bere inguruan, Zunzunegi, Etxaniz, Amas, Arandia ta Larrarte apaiz jaunak. Lizaso ta Lazkano bertsolariak, mezatako erriaren-eskaerak abestu zituzten, eta bukatu ondoren; Zestua'ko ikastolako dantzari-txiki «ITXAROPENA»ren dantza saio txalogarria, eta gero berriz,bertsolariek beste ekiñaldi bat eskeiñi ziguten; gaiak Aldasoro'tar Juan' ek jarriak, eta egoki asko zuzenduak gaiñera.

Hotel Asuncion'go jatetxean lagunarteko bazkaria: 100'dik gora bilduko giñan, eta bazkari orduan izan genduan giroa zoragarria, batez ere bertsolarien ekiñaldia. Bertsolaria ao beteko itza: erritarra dalarik, gure erriaren kezkak, asmoak eta abar'en adierazlerik bikaiñenak. Ikastetxetan gutxi ibilliak dirala diote, baiña, eskolaren paltarik ez dute. Bejondaizuela, Lizaso ta Lazkano! eta eziñ ixildu, gure on Juan zirikatzaillea aipatu gabe: milla-esker.

Ondoren pelota-lekuan, pelota jokoaldi estua ikusteko zoriona izan genduan, eta au, amaitu beziñ laister, arri-jasotzaille trebeak.

Gauean, berbenaldi zoragarria «Los Zorongos» talde-musilakariak eta tarteetan, gure abeslari ezagunen kantaaldiak, gure erria beti kantari izan da.


Eta bukatzako, milla-esker, laguntzen ibilli zeraten guziei, eta nola aaztu bazkaria serbitzen ibilli ziñaten emakumeok!

San Juan'go ermita berritu dugu, baiña gerorako zerbait pentsatu bearko, berritu dugulata bazterturik ez dugu utzi bear, zerbait asmatu, an, elizatxoan, illero meza berezi bat, itzaldi egoki bat edo... beste zerbait. Esan dezagun berriro. Jaiak, jai utsean ez ditezela gelditu.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Mokoroa Aita'rekin

Alkar-Izketan



«MITXELENAREN IDAZLAN HAUTATUAK». Idazpuru onegaz Mitxelena jaunak argitaratu dauan idaztia irakurri ondoren, «AZKEN ORDUKOAK» izen buruagaz agertzen diranak, kezkatsu jarri nabe. Nire moduan beste batzuk geratuko ziralakoan, kezkaz beterik, azken orri orretan eztenkada mingor geien jartzen dautsazan gizon ospetzu onegaz alkar-izketa bat egitea erabaki dot, era onetara gauzak argi jartzeko asmoz.

Norbaitek esango dau, nork bultzatu ete nauan itaunketa au eratzeko. Esan bear dot Aita Mokoroa aspalditxoan ezagutzen dodala, ta bere bideak zerbait ezagutzen dodazalako jarri naizela onetan. Ori dala-ta itauketa au eratu dot, ta ondo egongo litzake A. Mokoroa'ren pentzakeragaz egon ez arren bere, erantzun oneik irakurtea, bere eretxiak gizon jakintsuan eretxiak dira, ta beste gizon jakintsu (?) batek kritikatua izan dan ezkero bien arteko eztabaida onetatik argi apur bat geiago gura neuke AGUR'eko irakurleentzat.

Orain, nik itaunak jarri dodaz, A. Mokoroak dau itza, beraz erantzunentzat tokirik ba'da, Mitxelena jaunak dau oneri erantzuteko eskubide osoa.

Jakitun bion nastatzale ez neuke izan nai; itaunketa onen elburua gauzak diran eran jartzea da, orretarako norbaiteri eztena sartu bear, ta oraingoan lenengo sartu dauana Mitxelena jauna izan da. Euskal irakurle gazte guztiak beragaz ez gagozan eskero, argi indartsuago bat euki dagigun itaunketa au eratu dot.

---

1) *Mitxelena jaunak zure idazti «Lengua Vasca de hoy y de mañana»* gaingiroki *ikusi eta* presakaegi *irakurri dabela diño: parkatzeko, beraz, okerrik itzuri bayako.*

Uste dozu ganetik irakurrikeran zure lanaren mamiña ikusi leikela?


Nik ezetz esango nuke, gaur gaur bezela beintzat. Egunen batean nork daki zer ikasteko gauden oraindik, bizi bagera?... Gogoan euki zazu orratik, maixeatzeko joera aundia duala Mitxelenak, euskeraz asten danean; eta etzaiola bete-betean sinistu bear beti, esaten duan guztia.

Barkatu, bai. Eta, geiago balitz-ere, barkatu dago bertatik. Baiña zalapartan dijoala irrixtada txarren bat egin baldin badu, ta miñ artu, bere buruarentzat du kaltea. Guk eta beste-askok erruki izango degu; or eztauka ordea iñork zer barkaturik.

Ondo esanak, beti ematen du ondo, ba dakizu: ondo egiñak bezela. Ta liburu koxkor orren akatsak berdindu-naia egin bazaio norbaiti, ondo baiño obeto etorriko zaizkio ta, beretzat artu bitza, bear-ordu baterako jasorik neuzkan burubide on batzuk. Mitxelena-ri berari jalkiak dira, ain zuzen orain amasei urte, «Egan»-eko artikulu gazi batean. Begira zeiñen egoki datozen gaur bertan gure arirako, atzo goizekoak ez izanik-ere:

«Enioke nik iñori kenduko kritikarako eskubidea, nere kaltean bada ere. Baiña kritikak baditu bere legeak, eta lege oriek eztira beti gaizki-esatea izan ditekean bezain atsegiñak. Jorratzen diren obrak irakurri ere egin bear dira, kritikatuak dionaz jabetu bear da, eta irakurleari, kritikoaren iritziaz gaiñera, eman bear zaio zeazkiro besteak dionaren berri... Munduan barrena egiten den kritikak aspaldi utzi zion «ikusi-makusi» ibiltzeari Aurtzaroa joan zitzaigun». (EGAN, 1956, 5-6).

2) 394'*gn.orr. au diño: «Bere iritzien sostengutzat eta irakurleen argibidetzat dakarzkien habeak,* behar bezain sendoak *eta* oraingoak *ez izateaz gainera, badirudi* saiheska *hautatu eta erabili dituela (Mok.' k). Pompidou, politiko trebe eta halaholako letra-gizonaren testu polita ere eskaini digu.* Dioena gezurtatzeko *ez da urruti joan beharrik».*



Au esan ondoren, frantsesez nai ingelesez, batean baizen bestean trebe ei direan idazle biren izenak aitatzen dauskuz: Samuel Beckett eta Joseph Conrad.

Zer diño A. Mokoroak onetzaz?

Edozer gauza esatera jarri ezkero, zuk eta nik-ere asmatuko genduke dozen-erdi bat kontu potxolo sortzen, nondik edo andik, baita geure burutik-ere.

Baiña ari luzea bearko litzake, liburua irakurtzeko betarik artu ez omen duan zirikatzaille bati bere arunt-onuntzetan jarraitzeko. Eta guk biok eztaukagu berriketarako astirik.

Gizonak bezela itzegin bear bada, eztet nik uste gaur dan eguneko frantsesen artean asko lagunduko zionik politika utsak Pompidou-ri daukan maillaraiño igotzen, baldin buruz eta gaiñerakoz ondo jantzitako gizona izan ezpalitz. Eta naiko zozoa bear zukean edozeiñek-ere, bi edo iru izkuntza mendera ditzakenik munduan iñor eztala esateko.

Pompidou maisu zozoa eztala, Frantziak ba daki; eta eztio orrelako pellokerirk esan-arazi nere liburuak-ere.— Pompidou-k berak zer dion oraindik argitu ezpadu Mitxelenak, non bizi naizen ba daki berdin, eta etorri bedi derizkionean: pozik erakutsiko diot lerro-samalda txukun ori, orain AGUR-en sartzeko luzegi izango litzakena.

Bertan ikusiko du bere begiz, **ala-olako letra-gizonak** ere eztuala beti itsusi ematen **ala-ote-gabeko izkuntzalari baten** ondoan. «Non-nai egiten dituzte amak seme onak... eta poliki itzegin bada-ezpada jendearen aurrean... —esan oi ziguten lengo euskaldunoi **ezjakin jakintsu** batzuk, etxeko eskolatik asita.

(Etortzen bada, berari-ere galdetuko diot bidenabar zernola dan atzekoz-aurrera edo eztakit-nola sartu omen ditudan abe edo esola zarpill orien kontua... Eztiot sari-gabe utziko bere nekea. Bere artiku -pillan nere liburu koxkorreko iritzirik geienakin bat-bat datozenak sorta polit batean biltzeko asmoa det, 8'gn eraskin batez ornitzeko, liburuaren urrengo edizioa. Bear diran baimenakin. Ezta laburra izango eraskiña; baiña askoz itxura obea artuko du liburuak berak. Eta eztie geiago iñork zaar edo ustel aitzakirik atera al izango, nik eta beste askok ontzat dauzkagun abe oriei).

Gogoan al dauzka Mitxelenak, Orixe-ren poemaz oraiñ amaika urte argitaratu zituanak? Neri etzaizkit oraindik aztu: **«Orixeren poema erraza eztela dio norbaitek, ezta osoro errikoia ere; baiña ezta erraza, baitipat erri kutsua duen aldetik. Erri-bertsoak eztitu bear bezala ulertuko, Xenpelar lekuko, euskaldun garbia eztenak: diotenak adiña ardura baitu ixilik uzten dutenak». (EGAN, 1961, 4-6).**

Orretxen antzeko zerbait dio Pompidou-k, bere sorterriko poeten eta poeta eztiran beste frantses askoren izkeraz. Nik-ere ez nerabillen aotan oso bestelako gauzarik, Pompidou-ren itzak irakurleai eskeintzea buruak eman zidanean.

Ez al digu Mitxelenak sinistarazi naiko, baldinbait-ere **gezur biurtu** dirala geroztik, orain amaika urteko **egiak**...

3) 394'*gn orr: Eleizalde'ren eritxirik ez ei dakartzu zeure idaztian. Zer dala-ta ez?*

Bururatu etzitzaidalako!... Eleizalde-ren izena ba dakart alaere bere tokian (76'gn orr.). Eta etxeko berri dakianak, iñork esan gabe-ere ba daki, Eleizalde-rena dala 32'gnean entzuten dan itz-otsa.

Euskaltzaindiari egin-nai eta egiñ-eziñik gelditu zitzaidan eskea, iñork aintzakotzat artzen badu, beste gauza jakingarri au-ere ikasiko du zenbaitek:

Eleizalde-ren Oñati-ko itzaldiari erantzutea besterik etzutela egin Urkijok, Campion-ek, Ormaetxeak, Mendendez Pidal-ek... eta nere liburua aitatzen eta aitatu gabe uzten dituan beste euskaltzale askok.

Oen iritziak bear zituan jakin gaurko euskaldunak. Eta eztet sinisten iñoren kalterako izan danik argitara ekartzea.

4) 394'*gn orr. au diño: «Coromines maisu eta adiskidearen liburua* ez dut eskuaurrean: *badakit nolanahi ere, komeni zitzaiona hautatuko zuala Mokoroak,* eta komeni ez zitzaiona baztertu».

Esa-egizu mesedez noraiñoko sakondu dozun lan ori.

Coromines-ek orain ogei ta geiago urte ingelesez ateratako liburuxka ori, —(oraindik-orain egilleak puska aundirik erantsi ezpadio beintzat)— ordu-pare batean aixa irakurri ditekena da. Bere maisu ta adiskideari galdetzea dio beraz Mitxelenak..., ea jendeari erakusteko lotsaz zer estali ote dedan, eta... ea bere liburu orren zein orritan arkitzen dan, argitara bear zana...?

Erantzunaren zai gelditu dira AGUR-en irakurleak, egiarekin zein ibilli dan erabakitzeko.

Bitartean jakin beza Mitxelenak, eztauzkadala atearen atzean aztuta, beste lau liburu eder, Coromines-en doktriña berbera dakartenak: 1) **A. Griera**, Dialectologia Catalana, 1949; 2) **A. Badia Margarit,** Llengua i cultura als paisos Catalans, 1964; 3) **R. Casallarch,** Elementos de dialectologia catalana, 1969; 4) **Josep Meliá,** Informe sobre la Lengua Catalana, 1970.

5) 394'*gn. orr.: Ez ei dozu agertu Coromines-ek aitatzen daben katalana, Pompeu Fabra'z gerozkoa danik.*

Gizona! nola demontre izango da Fabra'z gerozkoa, Coromines-ek aitatzen duan katalan ori, **Maragall-en bertsoetakoa izanik?** Mitxelenak atera dezala kontua: Maragall 1911'gnean ill ote zan nago. Noizko artu zuan indar, Fabra-ren katalanak? Andik urte batzuk geroago. !Orra zer irrixtadak egin ditzaken lasterkaririk abillenak-ere, presakaegi dabillenean!...

Beste gauza oberik ba dezu galdetzeko?

Bai, beste lau galdera be ba-daukadaz oindiño, ardura aundiagokoak. Baiña asti luzea kendu dautsut gaur, eta urrengorako itxita obe izango dogu. Eskerrik-asko Aita Mokoroa.

Eskerrak, ez neri. Nai dezunean berriz ere etorri.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

AGUR

III URTEA
49 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - GARILLA - 29

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

alkar joteak

Izan dira gizonaren kondairan ainbeste eriotzaratu dabezan gaizo bildurgarriak. Gaur egun biziana dogu onenlako gaizo bat. Baiña gure aldi onetan gaizo guztiak baiño bildurgarriagoak doguz bide zabaletako alkar-joteak. Zenbat eriotza eta zenbat zauri ta azur auste gure autobideetan! Lenago, bat ilten zan bidebazterrean, kurutze bat ezarten zan. Oitura ori galdu da, baiña asko dira gizonen odolez gorritu izan diran bideak.

Batzutan bear-izanez, beste batzutan bere gurari utsez, geroago ta geiago sartzen da gizona arrisku bildurgarri onetan. Lanera joan bear dala, edo urteera bat egin bear dala, edo senide bat ikertu bear dala... or doa gizona, bere berebilla artuta, ariñeketa baten biderik bide, erririk erri, elburu batera eldu arte. Eta ez daki, gizajoak, usterik gitxien dauan bidertzean alkar-jote bat izango dauala ta bizia galduko daula. Bera da, ain zuzen be, ori gitxien gogoratzen dauana.

* * *

Gizadiak, alkar-jote oneik dirala ta, izaten ditun diru galtzeak ugariak dira: berebillak eurak daben galtzea, gaizoetxeetako gaztuak, lanik egin barik zaurituak igaro bear ditun egunak, illeak, lanerako gai ez dirala geratzen diran ainbeste gizon...

Alkar-jote oneik gizonen artean gorrotoa ta amorrua sortzen dabez: zelako berbak eta iraiñak entzuten diran olako umeetan! Guztiok apur bat maitekorragoak eta biotz zabalagokoak izaten alegindu bear geintekez. Onu onak eta berba onez emotea be noizean bein ondo izango da, baiña ainbeste alkar iraindu barik, barruko jokera basatiari ainbeste jaramon egin barik.

* * *

Eta alkar-jote oneik ain ugariak izan ez daitezan zer egin geinke? Edo beste era batera itaun au ezarriaz, zergaitik izaten dira jazoera oneek?

Guztiak ez dira izaten autolarien erruz, eta alderdi orretatik ezin urritu izango dira. Baiña asko dira ardurea artu ezkero kendu ledikezan alkar-joteak.

Iñoz logurea izaten da egille, batez be, diñoenez, eguerdi-osteko iruretarik bostetara. Ondo lo eginda, lar nekatu barik ibilteko arduratu beitez autolariak.

Ariñegi ibiltea be sarritan izaten da errua. Norako orrenbeste estura? Gero urrengo edatetxean estura barik egoteko!

Astiroegi ibiltea be ez da ona izaten. Batez be, zapatu ta domeketan baiño urteten ez daben autolariak bildurgarriak izaten dira, aurrean nai atzean. Arintasunari neurria artu bear dautsagu ba, eta orretarako zelako bidea dan, zelako berebilla dan eta zelako autolaria dan konturatu.

Bide txarrak eurak be sarritan errudun izaten dira, obeto esateko, bidea atondu bear daben langilleak. Aurkitzen doguzan zulo batzutan sartu ezkero ez da ain erreza osorik urtetea.

Berebillak berak be izan legikez akatzak eta utsak: edo txirriñak zulatu dirala, edo laban egin dauala, edo biurkiñen bat nasaitu dala...

Baiña alkar-joterik geienen iturburua ibilte-legeak ez betetea dala esaten dabe. Edo eskoiko ertzetik ez joan, edo bear ez dan lez aurreratu, edo emon bear diran ezaugarriak emon ez...

Gauza guzti oneik, eta geiago, kontuan artu daiguzan ba, eta bear dan arduraz ibilli gaitezan bideetan iñori, ez geure buruari, kalterik egin barik ibilli gaitezan.

AGUR



Onbearrez asmatuak, gaizki erabilliak!

JOKO BERDIÑA DANEAN

Ikastaroaren bukaera. Zuen seme-alabatxoen oporraldiak; nekearen ondoren atseden garaia. Gero, buruaste aski izango dutela pentsatuta, orain gurasoen inguruan gozatu ta jolastu.

Berriz ere, gure arloan, ikastola dala-ta aritu bearko gera. Gai auxe aukeratu degu gaurko saiorako. Batetik gurasoen eskubidea. Zer da eskubide ori? Ara, ari mutuarrri nola eldu diogun.

Eskubidea bearkizunari datxakio; zenbat eta aundiagoa bearkizuna, ainbat eta sendoagoa eskubidea ere, ta zaitu bearra. Ikusi orain: aurrak ezitzea ta aztea gurasoen egin bearra da, ta oiena beste iñorena baiño leenago ta areago.

Jakin berria dugu, gure auzoko erri batean, ikastolako gurasoen biltzarrean irakasle batek esana: Ez omen dira aurrak gurasoanak. Au aitortzen duena «faszizmoaren» maillan dago, obeto esanda, irakasle aipatu ori, batere zalantzarik gabe, «faszista» aundi bat da.

Euskalerrian, ikastolak, beren pedagoji bereziari esker, orain baiño leenagokoak ditugu. Gure errian ikastolak ordea, ez dira sortu pedagojiari bakarrik begira, euskeraren atzerakada ikusita baizik. Alegia, gure izkuntzaren alde zerbait egiteko asmoan, erriarenganako barnean sortu zaigun maitasunak eraginda. Euskera, euskal-gogoa gure erriaren arima ta bizia! Arazo sakona ta ezinbestekoa zala ikusita, gurasook, gure euskal-ikastolak sortu genituan, eta ez beste iñork!

Ortxe gure eskubidea beste gizonen aurrean; ortxe gure bear aundia gure erriari buruz, baita gure egin-bide ertsia ere. Baiña ikastolaren gaiñera datorren ersaso-aldia, denok dakigu izugarria dala; bai amaika madarikazio ere! Batetik euskera «batua». Noren batua? Iruren bat bide eskeintzen dizkigute. Zein aukeratu iru bide oietatik? Ta ezertarako on ez ba-litzazke? Bat aukeratzea, makurra izango da orratio.

Bestalde, kristau-ikasbidea. Irakasle «kontzientziatuak» erabilten dituzten gaiak ez dira aur txikientzako, gizaseme larrientzako baizik. Ebanjelioa oso ugari darabilkite, baiñan alderdi aukeratu batzueri begiratuta bakarrik.

Ikastolari laguntzen dioteneri buruz ere, zerbait aitatu nai nuke. Ikastoletako batzorde batzuetan, naitanaiez artu bearrak izan dira, ta toki askoetan, esango nuke, zipozkeriz eta indarkeriz sarturik. Ezagutzen ditugu, bost, lau, iru, bi edo aur bat ikastolan darabilzkiten gurasoak, baita ikastolako laguntzaille urduri ta latzak diranak ere. Ta, une ontantxen galdera bat bururatu zait: Laguntzaille gazte, ezkongai naiz mutil-zar orrek, 300, 500 edo milla laurlekokin ikastolari laguntzen diola-ta, laguntzaille onen autarkiak, gurasoen autarkiak aiña balio al du?

Nere iritzian, autarkia eskatzen duten oiek ez dira laguntzaille, zapaltzaille ta «oportunista» batzuk baizik. Nik ezagutu ditutan laguntzaille geienak, beren «interesak» aldezkatu ta aurrera ateratzeko saiatzen dira: euskeranto, «ideolojia» e. a., eta ikastolaren etorkizunagatik, bost ajola zaie.

Laguntzaille, euskal-nortasuna, euskera, ikastola ta gurasoen eskubideak maite ta aldezkatuko dituana bear du izan, au da: benetako laguntzaille jatorra. Baiña, tamalez, beste laguntzaille mota bat ezagutzen dugu, ta ez nolanaikoa gaiñera. Baldinpean, naitanaiezko baldintza, bere diru-laguntzarekin autarki ori erosi, ta ori ez dut uste zuzena danik; baldiñez betetako laguntza baizik.

Ekintza orreri, nere errian, «jauntxokeria» deitzen diogu. Poztuko giñake burruka onetatik zerbait argirik egitera iritxiko ba'giña... Ori bai da gure naia.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

KATALANAK ETA GU

Katalanak, euskaldun geienentzat eredugarri izan dira beti. Baiña azken urte oneitan, literatur euskerearen batasuna dala ta ez dala, askoz geiago. Egun batetik bestera euskera batua lortu legikela ta lortu bear dala diñoenak, katalanak be, beste orrenbeste egin ebela diñoe... ta ori ez da egia.

Labayen jaunaren «filoloji jardunak» irakurri ba'dozuez, ikusiko zenduen, sakon eta mamintsu gure AGUR'en, Pompeu Fabra ta bere errikideak izan zituen gora-beerak. Argi ikusi al izan da ez dala izkuntza baten «batzea» iru edo lau urteko arazoa... ta orrez gaiñera, katalanena ta gurea ez dira bardiñak, alde aundikoak baiño.

Lenengo; katalan izkuntzan, dialectoen ezbardintasunak txikiak dira, gureen ondoan. Ortografi ta fonetika aldekoak geienez, eta ez aditzarenak eta abar.

Bigarren; katalanak, izkuntzaren aldetik, aspaldiko jatorri ta tradizio aberatsaren jaube dira. Gu, auts-artean egon diranak erakutsi arren, ez.

Irugarren; katalanak iru milloitik gora dira, egunero, euren izkuntzagaz baliatzen diranak. Gu, zenbat?

Laugarren; Mailla guztietako katalan, txiroak nai aberatsak, alkarte geienetan, gorriak eta zuriak, ezkerrekoak eta eskumakoak ezertariko konpleju barik, katalaneraz egiten dabe, baita taldean izkuntza ori ez dakianen bat egon arren be!

Emen, laugarren gertakizun onetan dago, nere ustez gure, akatzik aundiena. Gure euskal zaletasuna —aitortu dagigun— sarri mingaiñekoa da, ta ez besterik. Umeeri euskerazko izen dotoreak ipinten dautseguz, al danik berezienak, eta larregi entzun bakoak... gero erderaz egiteko eurekaz. «Izenez» euskaldun diran umeak «izanez» erdeldun utsak dituzuz. Nunai entzungo dozu onelako zerbait: Aitziber, ven aquí! Garikoitz, no corras que te vas a caer! Enekotxu, que se lo digo a la andereño! ta abar.

Gurasoak erdeldunak diranean... tira! Baiña bietatik bata, ta batez be, ama euskalduna ba'da, pekatu orrek ez dauka parkamenik! Pekatu ori ez da gure nortasunaren aurkakoa bakarrik; pekatu astun ori, izadi osoaren aurka doa. Ta txarrena, orrela jokatzen daben gurasoak, beste gurasoen umeentzat be, kaltegarriak dira. Batzuk, euren umeeri euskeraz irakasteko alegiñak egiten; beste orreik auzoko landara bigunak erderatuaz, usteltzen. Ardurabako guraso batzuk lez, euren umeak kukurruko eztul edo beste erinastatzaille bategaz izan arren, parkera beste umeen osasunari begirapenik barik.

Ikastolara bialtzea ez da naikoa. Andereiño gizajoak ez dira mamu bildurgarri edo neskamearen ordezko merkeak; au gordiñik esan bear da. Andereiñoak gure umeen eziketa osorako laguntzaille jatorrak dira; euskaldun batentzat dan aberastasun eta ondasun aundiena lortzen lagundoko dauskuenak... baiña euskalduna ba'zara, ETXEAN euskeraz egin bear dozu, naiz ta asieran, oitu arte, gatxago, indarketa aundiagokoa izan!

Euskerea ez dogu «jakiteko» ikasten dogun pitxia; geurea izanik, egunero erabiltekoa baiño, ta egi biribil au esukaldun bakoitzean ez dan artean, galduta gagoz. Irakurle, beti euskeraz egiten dozun orri, danetariko «lorak» botako dautsuez: «intrasigente», «fanático» ta abar, baiña ez mindu alperren esanakaitik, eta jarrai zure oitura onagaz. Dirua irabazteko ba'litz... Londres, Nabarnitz baiño urrago izan baiña... Oitura eder orri esker, katalanak eurenari eutsi al izan dautse... ta, guk? Gu erdi zoratuta gabiltza!

Gure gazte askoren buruz, zer esan? Aspaldi dala jator asi ziranen artean, orain, beste kezka ta arazo batzuk bitarteko, erdera utsean dabiltza. Ala, azken orduko aztigarle batzuk diñoenez, gure izkuntzea gordetzeko alegiñak be «arrazakeria» ete?

Olakoeri jaramonik ez, eta geureari eustea da artu bear dogun elburu bakarra, ta izkuntzeari dagokion gora-beeretan, katalanen errigintzea eredutzat izan... ez baiña laprastadagarri izan leiken «batetan», eguneroko ITZ EGITEAN baiño.

Eta orain, Irakurle, ez dozu uste demagojizko idazkerea erreza danik? Nik, bai.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

MITXELENA'REN IRITZI BATZUK

Izkuntza, dan bezelakoa da; ta eztago iñoren eskutan gogoak diona egitea izkuntza batez.

1.—Izkuntzaren legeak eta ereduak, bide zuzenetik ibilliko bagera, eztu egon bear gure baitan, naierara alda dezagun: gugandik kanpo eta gure gaiñetik baizik. (EGAN, 1960, 3-6).

2.—Hizkuntza —edozein hizkuntza— den bezelakoa da, eta ez du inork zilegi bere kabuz eta taxuz direnak direnetik aldatzea. (Patxi Altuna, Mitxelena'ren idazlanen aukeratzailleak, 1972, 54 orr.).

Izkuntza, bere bidetatik dijoa; ta geu gera bere legeai makurtu bear gatzaizkionak; eta ez beraren legeak ankazpiratu guk.

3.—Gu gera izkuntzari makurtu bear gatzaizkionak, ez izkuntza guri, gogoak ematen digunean eta gogoak eman digun bezela. Obe genuke euskerak maitasun gutxixeago eta begiramen geixeago jasoko balu gugandik. (EGAN, 1960, 3-6).

Gero zer izango dan nork daki? Gaur zer dan eta len zer izan zan: orixe dakigu doi doi.

4.—Umandi-ren iritzi au, aurrerazaleen iritzien eredutzat ar dezakegu: «Geroak ekarriko du argia».—Bitartean, nola etorkizunaren jakite ziurrik etzaion iñori eman, beste edozeiñenak adiña balio du nere usteak. Emen orratik ez gera biarko izkuntzaz mintzatzen; eta gaurko izkuntzaren legeak eta oiñarriak eztaude geroan, aldi igaroan baizik. Lot gakizkion bada den izkuntzari, izango dena aztiei eta sorgiñei utzirik. (EGAN, 1960, 3-6).

Izkuntza ezta gure eskuetan jostaillu bat balitz bezela erabilli dezakegun zer bat.

5.—(Olabideren aldietan) barreatua zegoen izkuntza nolanai eraberritu, aldatu, ugaritu eta murriztu zitekealako iritzia, oitura eta tradizioaren batere konturik egin gabe... Olabide ez zen ziñetako eta benetako euskeraz ari; saio-euskera edo euskera esperimental batean baiño. (EGAN, 1959, 1-4).

6.—Uts larriak ditu (Olabideren) itzulpen onek. Naturaltasunik eza, aurrenik; eta bekatu larria da. Laboratorioko ontzien erdian jaio dena. Faust-en *Homunculus* aren gisa, nekez elduko da gizatasun osora. Beste utsa teoriari dagokio; baiña saioetan teoriak, eta teoria zuzenak bear du izan gidari, sasi tartean galduko ezpagera. (EGAN, 1959, 1-4).

7.—Saio-izkera, ots, euskera esperimentala deritzat Olabideren izkerari. Bide berri batetik abiatuz gero noraiño el daitekean antzemateko sortua. Onetarako, biar-etzitako euskaldunei begira, aaztu egin bear nora-ezean, gutxi edo geiago, gaurko euskaldunak, atzokoak ez ezik. (EGAN, 1959, 1-4).

(Olabide'ren aldiko berrikeririk eztu nai M'k; baiña «garo-usai» —edo «gorotz-usaia»— kendu egin bear omen litzaioke, kale-izkuntza biur dedin).

8.—Bein baiño geiagotan sartu dira berrikeriak gure artean batasun orren izenean. Eta guk, ona garbi esan, eztegu berrikeririk bear. Au da, ajola duten gauzetan. (EGAN, 1959, 1-2).

9.—Eztitut gogoko erabat gaurko berrikeriak, eta ezin ditzaket izan; geiegizkoak direlako batzuetan, bear bada, eta geienetan gure garaikoek maiteen genituen uste eta balioen kontra doazelako batez ere. (EGAN, 1960, 3-6).

10.—Larre-izkuntza dena, kale-izkuntza biur dedin, ain maite dugun garo-usaiña —norbaitek gorotz-usaiña esango luke— zertxobait galtzea nai ta naiezkoa izango du (euskerak). (EGAN, 1951, 3).

Nork geure euskalkia ondo eztakigu, ta zer ari gera bide berriak asmatu naiean?

11.—Euskeraren legeak dakizkigulakoan, iñor gutxik dakizki gaur bere euskalkiaren legeak; are geiago, eztakigu geienak zein euskalkitan ari geran ere. Oraingo pintatzaille askoren kontua da ori; bere lanbidearen abezea ikasi baiño leen, —aspergarri xamarra izaten baita egiteko ori— bide berriak zabaltzen asi bearra. (EGAN, 1960, 3-6).

12.—Izkuntzarekiko auziak eztaude oraindik, egon bear luketen egoeran, naaspillarik larrienean baizik. (EGAN, 1959, 1-4).

13.—Euskal-gramatikaren punturik geienak auzi biurtuak ditugu gaurko eta emengo euskaldunok. (EGAN, 1959, 1-4).

14.—Ez da aski axaleko forma aldatzea euskalkia aldatzeko. (Mitxelenaren idazlan hautatuak, 1972).

NERE BORDATXOTIK

Aita Plazido Mujika txalogarriak, uztaillaren 24'garren egunean, urrezko eztaiak ditu Jesus'en Lagundiarekin: 1922-1972.

Aurrez bidali nai genizkioke gure zorion gartsuak, Bordatxoko ate-leioak zabaldurik.

Iztegi zoragarri baten egillea da Aita Mujika. «Diccionario Castellano-Vasco» iztegiaren izena.

Danen gustokoa ezta izango. Ori eziñezkoa da gure artean, eta areago orain, euskaltzaleok egundo baiño sakabanatuago gabiltzan aldi ontan.

Egin dan lanik onena dala derizkiogu guk.

Azkue'ren iztegi berdingabea euskeratik erderarakoa dan bezela, Mujika'rena erderatik euskerarakoa da. Utsune ikaragarria zegoen: premi larrian geunden, bazter guztietan erdera nagusitu dan ezkero.

Aita Mujika'k bete digu utsune au. Ondo ta bikain bete ere: arrigarri.

Gogozko dutenek eta akatsak aurkitzen dizkionenek, unetik unera eskuetan darabilten iztegia da.

Nai ta ezkoa baita euskeraz idatzi bear duenarentzat, edo irakurle aundia danarentzat. Larrialdi asko baztertzen ditu jendeak Aita Mujika'ren lanari esker

Aitortu nai bada ta ezpada, au da egia.

Oraindik ezta izan iztegirik (iztegi lodirik) Mujika'ren bezela saldutakorik.

Zortzi milla ta eun ale, alajaiña!

Ontatik pentsa nolako egarria zeukan jendeak.

Oraindik ere eskariak, andik eta emendik. Au dala-ta, «Mensajero del Corazón de Jesus'en» irarkolan bigarren edizioa ateratzekotan dira.

Aita Mujika eztago len egiñarekin konformatzekotan. Etenik gabeko lanean ari da biarko egunari begira.

Eskuartean dabizkien arazoak eztira nolanaikoak. Beste iztegi bi argitaratu nai lituzke, lengoak lengo dirala.

Bat Euskeratik Erderarakoa, ta bestea Euskal Iztegi utsa.

Jaunak dakiola egiteko auek guziak aurrera eramateko adorea ta osasuna.

Ezta makala izango, Aita Plazido, Euskalerriari egingo diozun serbitzua. Urteak joan, urteak etorri, egindakoa or geldituko da bizi diranentzat.

Zu ezkutatuko zera beste guztiok bezela. Zure lan bikaiña da ezkutatuko eztana. Orrek bizirik iraungo du.

* * *

Aita Justo Mokoroa agurgarriak egi borobillak idazten ditu.

Min ematen duten egiak, ala izaterik nai ez gendukenak, baiña uka eztitezkeanak.

Arro batzuk gera euskal idazleok. Goiko aparretik goiko aparrera gustatzen zaigu.

Erri xearentzat, erri apalarentzat eztegu errukirik. Eta gure erriaren amarretik zortziko partea erri apala izaki.

Goizetik gabera, Mokoroa'k dion bezela, gure baserritarra filosofo edo filologo biurtzea nai degu.

Erri apal orrek iñundik iñora ulertu ezin duen euskera idatziko diogu.

Itzegin ere bai askotan; ulertu ez lezaken eran, jatortasun eta naturaltasunaren arrastorik gabeko izkuntza bat ezpaiñetan dabilkigularik.

Egunetik egunera estutzen, murriztен, laburtzen, euskeraren saillak.

Erri apal orrek bizkarra eman baitigu.

Guk berekin ezer nai ezpadegu, ezta berak ere gurekin. Or konpon euskera ta euskaltzaleok!

Lotsatu egiten da euskalduna dala esaten ere. Erderara dijoa amorratzen, ain bearrezkoa duela ikusirik.

Toki onean gaude gure izkuntza lau «intelektualek» salbatuko dutela uste badegu!

Erri soil eta apal orrek iraunerazi dio bizirik millaka urtetan.

Erri ori galtzen dan bezin azkar galduko da euskera.

Gu gera erri orren etsairik amorratuenak.

Gure pekatuak eztu barkaziorik.

«BASARRI»

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

pozak eta kezkak

BARREGARRIA

Kaixo Ebaisto, zer daukak? Aurpegi txarra ikusten dauat.

—Bai, lagun; lo egin eziñik nagok, eta egiten juadan apurra, dana amesetan!

—Ez egik artu akeitik!

—Ez juat artzen!

—Zelako amesak egiten dozak ba?

—Euskal-Erri osoan euskera «batu» ori egiten dala, ta ez juat tautik be ulertzen. Osagilleanera joan bearko nok.

—Txotxo! Ik sikiatra bat bear dok! Euskeranto ulertu nai dok? Asi adi gaztelera ta prantzesa ikasten. Ez dok buru-auste makala izango!

NEGARGARRIA

Ausartak benetan euskerantokumeak. Oraintzu «euren» aldizkari baten «Joxemiel Barandiaran» izenagaz izenpeturik h'z jositako idazlan bat irakurri dogu. Ta On Jose Migel'ek ez du h'rik ezta olako barrikerirk erabilten. Jakitun orrek ez du olakorik nai, ta egiztatzeko zenbat gura eskutitz erakutsi geinkez. Oraintzu, AGUR'erako, Gorigolzarri'tar Xaboer'eri egindako lana be or dogu... ta abar.

Baiña billoizik dagozan ausartak iñoren jakintzagaz jantzi nai... eta Barandiaran'dar Joxe Migel'ena ez da makala! Barandiaran'dar esan dogu!

Len be Mokoroa'ri, bere «Ortik eta emendik» egaz, beste orrenbeste egin nai izan eutsoen. Baiña Justo Mari Aita ez dago illargian! «Hortik eta hemendik» zaleak «aize preskua» artzera aspaldi bota ebazan!

Ausartak eta lotsagabeak benetan «hatxis drogadiktoak»!

PIPER ZIRI

IZTEGIA

Gure izkuntzan ez-jakiñak garala, esan eta esan gabiltza, orrekin gure akatz au garbitzen dogulakoan, edo garbitu naian. Orrenbeste jakin, esan eta aldarrikatu ondoren, ezer oberik ez ba'dogu egiten, ez jakiñak ez-eze, alper itxurabakoak garala be erakusten gabiltza; alperrak eta paboerrealak baiño be gelduagoak.

Ala ta be, gure ez-jakinkeri au osatu edo sendatu dagigun, or dabiltza beste jakitun apalagoak egiñalak egiten. Ta, Muxika'tar Plazido Aita'ri zorionak emotera joan garala, an aurkitu dogu epe bariko lanean jo-ta-su. Bere Urre-Eztaiak oraintxe, ta jaieguna baiño astegun lanpetua dala dirudi bere inguruan.

Bere iztegi ezagun «DICCIONARIO CASTELLANO VASCO»ren bigarren argitaraldia, bidean dator. Lenengoa eskuratu al-izan ez ebenak, ona emen aukera barria. Ta Plazido Aita'ren asmoak salerosketa jokabideetatik urrin diranetik, bere bigarren argitaratze oni azkartasuna emon gurarik, eta erosleari lagundu nairik, auxe jakin dogu, asmatu ta eskatzen dauskula:

1973'garrengo Urtebarria baiño len (AURRETIK EZER ORDAINDU GABE) arpidetzea eskatzen ba' dozu; bere iztegi eder ori (bigarren argitara-aldia) % 30 merkeago jasoko dozu. Bialdu zure zuzenbide osoa: (Plácido Múgica, S. I.—Santuario de Loyola AZPEITIA. Guipúzcoa)'ra.

UBITZA

GAZTE

NABARNIZ'TIK (III)

Azkue jaunak egindako «Euskalerriaren Yakintza» Lorategi ederrean, 78 gn ingian, 25 zenbakiagaz «BASAIKO-LOREA» ipuiña agertzen da. Ipuiñ au azkenean jartzen dauan lez Tomas Ibarguen'en aotik artu ei eban. Benetan dotorea da, ta origaitik barriz argitaratzea nai izan dot. Ume-umetatik entzun izan dot, batez ere nere amonaren aotik. Ez dot idazten emen Azkuek dakarren lez, neuk dakidan edo entzun dodan lez baizik. Eta nire auzuneko zarren ustez, benetan jasorikoa ei da.

Nabarniz'ko guna, geienentzat, edo Eleizalde Menike ta Lekerike aldekoentzat, beintzat, Illunizar mendia da. Illunizar tontorrean, ba-dira gudaroste edo antzekoren baten egiñiko lur zulo ta orma edo zeozer izanekoak. Orain dala urte gitxi, Bizkai'ko Diputaziñokoak ere egin eben torre-bat-edo, len iru kurutze arri gaiñean ziran lekuan. Oiñizeta alderago bera une batean leiza aundi bat aurkitzen da, aundi ta bildurgarria oraintsu arte, ta askorentzat orain ere bai.

Dirala urte asko, Menike auzuneko andra bat, bere semetxo txikiagaz astero bedarretan leiza ondora igoten zan; ba-eukan bertan solotxu bat ere. Iko sasoia zan. Ez dot esan, baiña, leizaren ezpanean ba-zan alako iko txiki bat, ez iñork jarria, berezkoa baizik, «baso iko» bat.

Umetxo txikiak (zazpi urtekoa) iko garaun bat ikusi ta basaiko aren ganera igon eban, eta baita garauna artu be; baiña ezin atzera biurtu otakin lotuta geratu zan-eta. Estu ta negarrez, amari deika asi zan gaixoa. Joan yakon ama laguntasuna eskeintzen, baiña ota moltzoak ez eban bieri eutziteko gogortasunik eta biak leizara jausi ziran.

Millaka saguzar urten ei eben egun aretan Inuzija'ko leizatik.

Menike auzunean, mendi barrenean, badago iturri bat, «Itxurriko» baserri etxearen ondoan. Emakumea ta semea Leizara jauzi ta illabetera, iturri ontan agertu ei ziran amasemeen jantzi zati batzuk. Iñork ez daki arrezkero euren barririk.

Beste batek, ostera, «Itxurrikume»ko lamiñen bat zala esan eustan.

PELLO

Garatea'ren Alde Zerbait

Jaio ziranetik ezagutzen ditut Pedro M.ª ta ikastolako andereiño dan bere arreba Maria Luisa. Txikitatik ekarren Pedro Mari'k euskera zaletasun bizia, baiña askoz lenago nik, neure lengosu bigarren dan bere aitagaz, jardun aldi luzeak izan ditut, bai buruz-buru Meriketxebarri'ko baserrian, baita eskutitzez; beti euskeraz.

Baiña ez natorkizue «odolaren deiak» oarturik, eztabaidea bere mugatan sartu nairik baiño. Pedro Marik'k ez du Arana-Goiri, Zabala-Arana ta bere jarraitzailleen errizaletasuna ta euskereari emon eutsen gorakadea ukatzen. Ori ezin du iñork egin eta gitxiago nik ain maite dodan Pedro Mari edo Pello'k, ez.

Baiña asi gaitezan atzekoz-aurre: Iñoiz euskera «idatzia» batuko ba'da (eta batzea nai nuke) goren maillako izkuntzalari guztiak diñoenez «Euskera literario batu ori erriak egunero egiten daben, oguzten daben euskeratik al-dan antzekoen izan bearko du» ta au ez leuke zentzunez jokatzen dauan iñork ukatu bear.

Zer jazoten da gaur? Diralako «euskera batu» edo euskeranto oiek erriagandik, iñoizko euskera idatzitik, urrunen dagozala, sarritan euskera antzik bere ez daukeela. Eta au salatzen eban Pedro Mari'k, Zabala-Arana'renagaz, bear ba'da, txarto konparaturik.

Baiña guda aurreko irakurle ta idazleak ulertzera oituak egon arren egia esaidazue: Aldi aretako idazle batzuen idaz-lanak erri xearentzat errezak ziran ala ez? Or dago nere ustez untzea! Erria alfabetatu aurretik ez ete-ziran goi-maillako euskera bat erakusten asi? Zenbat ziran egi-egizko irakurleak?

Gaurko aldizkari erosleak ez dira irakurleak eta askoz gitxiago «Euskerantozko» aldizkarienak. Orregaitik erria, erri landuaren euskera artu bear dogu aintzakotzak eta bide orretatik gora jo... baiño ez goitik asi, arren.

Nere ustez au azaldu nai izan du Garatea'k eta egia autortuko ba'dautsuet neuk bere alde batetik arrazoia dauala uste dot. Egia esan, neu bere guda aurrean «sei urteko» analfabetoa nintzan. Ba'liteke gure laprastadearen iturburua ori izatea, baiña ez dot uste. Gudaren errua egizkoa da baiña bene-benetan errian zustraiturik egon ba'litz, uste dozue ain ariñ idazkera a galduko zanik?

Ez daiguzan errizaletasuna, euskeraganako maitasuna ta idazkerea nastatu. Ta ez dot uste Sabin'enganako begirune ta maitasunik iñork ukatuko daustanik, berai esker gabiltzaz gu emen-eta.

Parkatu iritzi bardiñekoak ez zarien guztiok eta aurrera erriko euskerearen alde naiz-ta «intelektuak» batzuegandik «jeboak» gerala entzun bear. Eta ez asarratu, arren!

ARENAZA'K

-GATIKA'TIK-

Egunon lagun biotzeko:

Ni naiz zuen lagun barri bat. Ni euskerazalea naiz. Ta gaur kontu txiki bat konta bear dautsuet. Au da kontu ori:

Baten izan ziran mutiko bi. Euren izenak ziran Yosu eta Yoseba. Mendian bizi ziran zugatz artean. Egun baten edurra egiten eban. Ta Yoseba'k otz euki eban. Ta ezaben euki egurrik sua egiteko. Ta Yosu basora yoan zan egur billa ta apurka, apurka azago joan zan eta illuntzen asi zan ta ezin etxeratu eban. Andik paraje etxe zartxu bat egon zan eta an gelditu zan gabean.

Urrengo egunean goiz argia ikusi ebanean itzartu zan. Yosuk, txistu joten entzuten zaben bateren bat. Andik paraje aurkitzen zan erri bat, erri ori zan Armintze. Ta bertako jaiak ziran. Orregaitik entzuten eban txistua. Ta apurka apurka aren zaratara, erri aretara allegazan. Ta ango erritarrak poz aundiagaz artu eben mutiko ori.

Ta ordurik poz-pozik bizi zan bere aita eta amagaz.

Eta beste ezer barik ba noa.

Agur eta urrengo arte.

Zuen lagun...

BEGOÑA (13 urte)

euskal hit parade

Joan jakun Bagillean garaille Areatza'ko Patxo izan dogu, Arratia'tik Gorbei'ko ur gardenen txirristada gozoak eta txorien tiruliruliak ezeze, eztarri doiñu eztiak be ba-datozela erakusten.

Oneik dira il orretako amar onenak:

1.—«MAITASUNA», Areatza'ko Pello'k abestua. CULUMBIA.
2.—«Agur María», Estitxu'rena.
3.—«Arribedertxi Mirentxu» Argoitia nebarrebena.
4.—«Guria», Donato Larrañaga'rena.
5.—«Udaberrian», Yayone'k eta Joseba'k abestua.
6.—«Ezin Aztu», Luis Mariano zanarena.
7.—«Orrela Doa Mundua», Jon Enbeita'rena.
8.—«Zure Begiak», Mocedades taldeak abestua.
9.—«Dana Polita Udaran», Donosti'ko «Los Euskaros'ena.
10.—«Erriko Festa», Deustotarrak abestua.

Areatza'ko Patxo'k il onetan gorakada aundia egin dau, ala ta be, Estitxu izan da iru-illabeteka onen irabazlea.

1972'gngo UDAKO ABESTIA


«Udako Abestia» leiaketea irabazi eta izen orren jabe aurten egin dana, «DANA POLITA UDARAN» Euskaros taldeak abestua izan da. Or dozuz argazkian talde au osotzen dabenak: Oyarzabal'dar Joxe Mari, abeslaria; Perez Larrañaga'tar Eugenio, bateri jotzaillea; Area Arrieta'tar Calisto, gitarraduna, ta Mercedo'tar Jose Antonio, organo ta piano jotzaillea.

Ta, jakingarri lez, ona emen azken urte oneitan UDAKO ABESTI izan diranen izenak:

1969'gnean: «Urrezko Sasoia», Naikari taldea.
1970'gnean: «Maite Zaitut Neska». Andoni.
1971'gnean: «Maitasun Kondaira», Alfredo.
1972'gnean: «DANA POLITA UDARAN», Euskaros.

Zorionak ba danori, abeslari, itz-jartzaille ta disko etxekoeri.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER



otska

Argiz argituta aurrera doa gazte bizi bidean.
Gaitzak itzartuta, samiñez,
asmau ditu miñak bizian.
Gizonaren lege au alda
mundu ontan;
berez atsiz ildutea zoritxar'pean.
Ainbeste txarkerik zer agerterazi nai dausku.

Bizitzan, erdi-illik, gizona
zeren billa dogu.
Makaldu egingo? Lurra jo eragingo?
Guk zer esango?
Ez dago aultzerik, bizia
bere zertik erabillirik.
Nire indar minduak barriztatuko dira gogor.

Gure gizadiak entzungo dauz
egiak pozkor
lur gain guztian.

Mungi'ko ZARRAGA'tar Joseba'ren abestia

ARGI-ONTZIAK
EMOITZGARRIAK
EREDU BAKARRAK
ALBERTO URRUTIA GOTI
Ribera, 19 (Pelota, 1'en ertzean) 21 14 89 Urrut.
Carnicería Vieja, 8 - 23 56 25 - Urrutizkiña.
Santuchu, 16 - 339491 - 333123 - Urrutizkiñak
BILBAO

KONTU KONTARI

ITZ-BARRIAK BAI ALA EZ?

Sarritan, Itz-barrien kaltez jardun oi dira euskaldun batzuk. «Neologismoetzaz» ari naiz.

Noizpait, izan daikie itz-bidea. Ez baiña beti! !Ezta urrik emon be!

Itz barriok, argiak, garbiak eta edozein euskeldunentzat uler-errezak diranean, egokiagoak eta bearrekoagoak dira.

Iñoiz entzun dot, itz-bidea izatea, arrazoia izatea ez dala naikoa; azaldu egin bear dala, sinisbideekaz sendotuaz.

Orretarako, nire eretxi ta azalpenak baiño indar geiago izango dutelakoan, Plaxido Mujika-gandik jaso izan nebazanak jarriko dodaz:

Esatebaterako *Litófago* zer dan nork daki? *Antropófago* zer da? Batek edo bestek jakingo dau. Geienak ez. Erdeldunak eurak bez. Euskeraz esan ezkero barriz, edozein euskeldunek ulertu dagikez. Alan diño euskal-erdel iztegi andia egin eban Aita Josulagun argi ta kementsuak.

Litófago OSTO-JALE ei da. *Antropófago* GIZON-JALE. Nork ez ditu ulertuko itz orreik euskeraz esanik? ¡Neuk be bai, erderazko itz orreik zer esan gura eben, ez nekian onek!

Urrengo itzok bere uler-errez egiten jataz: *Microcéfalo* BURU-TXIKI, *Acrocéfalo* BURU-ZORROTZ, *Dolicocéfalo* BURU-LUZE, *Braquicéfalo* BURU-MOTX eta abar. Niretzat, uler-errez ta zuretzat be bai ezta irakurle, euskeraz esan ezkero?

Orain 60 urte inguru, *Ferrocarril* itza zala-ta, bardin gintzazan. ¿Ez al zan eta ez al asko politagoa, uler-errezagoa, BURNI-BIDE euskeraz esanik?

Euskal-errobiak alako erreztasuna emoten badausku itz-barriak biribiltzeko... ¿zertako ibili iñok ulertzen ez dituan itz itsusiekaz eta idazkera atzerritikoekaz?

ABELETXE

SOBERANO

¡gizon artekoa da!



GONZALEZ BYASS

Biziaz Arduratuz

Esan bearrik ez dago. Ogi goseaz batera osijenu gosea be, ugarituz, nabarmen datorkigu egunetik egunera. Ogi gosea gitxi-asko mundu guztian zabaldurik dago, mundu guztian nabaitzen da aundi-txikizko gizarte-malla ain ezbardiñetan. Eten eziñezko malla-kateak! Gosea batez be, Asia aldeko ta Aprika'ko laterri ezeuki, txiro batzuetan narbarmendurik dakusgu miseriaren atzamar gaiztoen menpetasun negargarrian. Batzuk Biafra'ren antzera, galdutako guda madarikatuaren bidez or ondatuta gelditu dira ta, beste batzuk, or diardue urteetako burruka luze ta, gogorrean, noiz amaituko dan eztakigun odol-ixuritze, negargarrizko miseri ta gorrotopean, berea ez dan guda batean, bata-bestea desegiten. Noren onerako?

Begiratzen ba dogu beste alderantz, lurralde zibilizatu edo gizabidetsuetara... Emen osijenu bearrez arkitzen da gizona. Industriaren-industriz betetzen ari dira bazterrak, lurrik onenak oinperatu ta, ibai, ur-alde geienak industri aurrerabidetsu orrek botatzen dabezan zaztar ta, ondakin, lejia ta anitz kimika gaiakaz, bits-apar zikikiñez loitu ta itxusituz. Ta, okerrago dana, milla bider okerrago: ibaietako bizia erre, arraiak betiko galdu, ondatuz...

Orra gizona irabazietan itsuturik, gaurko makina, tresna egoki ta ederren bidez bere burua ondatzen, lurperatzen; izadia galtzen. Zergaitik ez zikinkeri orreik gitxitzeko neurri egoki ta bearrezkoak artu? Ez al dago ezertariko zuzenbiderik? Ai! Ta, agintariak ortarako zelan ez dira arduratzen? Ai! Agintariak, agintariak... Baiña, zeintzuk eta nundik bizi dira agintariak?

Gauzak onela dirala gure Euskalerria be, bere industri lanbidezko ugaritasun ta aberastasunean (batzuen aberastasunean) geroago ta zikin itziago, zabarrago dakusgu erri aundi ta txikietan, Iñoiz, aldi baten, argi ta garbi izan ziran oskarbi, egurats arnasgarriak gaur, uri industritsuetan, gitxienez amar bat muetako ke-margoz lañoturik arkitzen dira itomenezko ke-autsez...

Ta ibaiak, gure aintziñako ibai gardenak ibaiak al dira? Ikus Oria, Urumea, Nerbion... Urumea izenak ur-mea adierazten dausku ta begiratu gaur Donosti erditik, ze itsusi ta ustel kiratsez itxasoratzen dan... Ta, gure Nerbion ospetsua, entzutetsua, bere itxasontzi ta meatzbidez ain ezaguna mundu guztiko itxaso ta errietan... ikusi gaur ibai ori, bere loi, zikinkeri atsituak lau-aizetara edaturik lotsagarrizko eruapen neketsuan...

Eta, biztanleak, ain egoera tristean bizi diranak, eguna ioan eguna etorri beti, lañope ketsu ortan bizi bear dabenak ez al dira aintzat artzekoak, benetan errukarriak?

Oitu egiten dala bat, oitu... Oitu egin bear. Antxiñako astoaren kontua: ian barik bizitzen ikasi zuaneko il egin zan, il.

Lotsagarria ta negargarria da bai, nagosi ta agintarien ta, baita, gure ardurarik-eza! Ba agintari ez garanok be, alegindu bearra daukagu okerrak zuzentzen, onbidezko gauzari laguntzen; txarra ezeztu ta zalatzen.

Bai, ogia bezin bearrezko da arnas artzea. Artzen dogun aize, arnasgai ori likistua ba' datorkigu kiratzes edendua; lantegi aundi ta txikiak edatzen daben kedats ta auts-zikinkeriz ta abar, gizona gas-lurrun artean igarri barik erdi-itoan bizi da. Iakintsuen oar ta esatez, milloika gizaki ei dira industriaren bidez eritu ta gaxoz galtzen diranak. Zer dagikegu lurrun kaltegarri, kedats ustel auek gugandik zerbait aldendu, zerbait arindu ta zuzentzeko?

Izadiaren iraupen aldezko dei zabal ta, garrantzitsu bat zuzendu dautso gaztediari Europa'ren Batzar Burua izentatzen dan bazkunak.

Robert Poujade Prantzi'ko ministruak, lenengo aldiz ta Europa'ren izenean, Champs Elyseetan, txartel-egitarau batzuk banandu dauz Izadi-zale ta Aldezleen artean. Txartel auekaz iabetu diranak zin egin dabe ondorengo amar agindu edo arauok aldeztu ta betetzeko.

1.—Landareak, basa-loreak ta abar, begirunez zaindu ta babestu; erabat soloetako emai eta Izadiaren ikuspegiak.

2.—Baso-oianak babestu ta suaren aurkako neurriak gogoz bete.

3.—Ezagutu ta zaindu txoriak.

4.—Ezagutu ta bete abere basatien bizitzeko eskubidea ta, zaintzen gogoz arduratu betiko ondatu ez daitezen.

5.—Ez zikindu iturriak, urbide, ibai-ertz, aintzira, ondartzak.

6.—Ez edonun bota kondarki ta zikinkeriak ta garbitasun eginkizunetan artez iokatu.

7.—Ez autsi, ez eten Izadiaren ixiltasuna.

8.—Arreta aundiz ibilli parke, babes-toki berezi, zarkizti edo arkeolojiku ta edesti toki ikusgarri ta iakingarrietan.

9.—Gogo onez irakatsi illunpean oker edo, ez-iakiñean bizi diranai.

10.—Arduraz aldeztu, babestu, Izadiaren-alde sortzen diran Alkarte ta aurrerabide ongarriak.

Ona emen amar agindu eder bakoitzak etxetik ataratzen danean beti gogoan izan bear leukezanak. Bai, Europa Batzar Burua'k izadiaren aldez banatutako erakusbide ongarri ontan zer ikasi ederrik ba'dogu bai...

Kontu izan bearrean gara batez be, udaldiko ibillaldietan. Ez daigun alperrik zugatz adarrik apurtu, ez ebagi. Ez edozelan bedartzak zapalduta itxi. Ez ontzi ta zatarkeriak ibaietara bota. Izan gaitezen zentzundun ta Izadiaren lagun.

Ta, batez be, mendibidezko ibillietan alegindu gaitezen euskeraren onerako baserritarrangandik eztakigun zerbait ikasten... Gizonik apalenean be, beti arkitzen da zerbait onuratsu ta iakingarri.

MUNIATEGI'TAR SABIN

Galtzen Doaz

Denboriagaz oitura asko doaz galtzen eta oiturakaz batera sarritan itzak be bai.

Gu gazteak giñanean asko erabilten genduan «txartel» itza. Erlejiñoagaz zer ikusi estu-estua uekan itza zan «txartela», batez be dotriñiagaz. Jaunartzen Nagusia egiteko txartela artu bear izaten zan ta orretarako dotriñia ondo jakin bear. Sakristian, bikariuak bana-bana itaun batzuk egin ondoren txartelaren jaube egiten giñan. Erlegiñoiko jakin bearreko nagusienak ba genkiazala baieztuten eban «abala» zan.

Baiña, Jaunartze Nagusia egiteko ez zan bear bakarrik txartela, urtero pazkokua egiteko be bai. Ta orduan be kristiñau ikasbideko itaunari erantzunaz emoten eben. Lenago danak juango ziran kontixu bakotxarentzat txartel billa, baiña gure ume denporaz ez, gure ume denporan gaztetxuok eskatzen genduan etxeko gurasо ta zarrentzat. Ta txarteletea amaitu zan ta itza be bai. Gaurko umeak ez dakie «txartel» itzak zer esan nai daben. Entzun be ez dabe egin itz ori.

Beste itz bat, lengoaren esan nai bardiñekoa, «txantel» zan.

Au be asko erabilten zan, orduko Ondarru'n. Kofradixan emoten eben, arrantzaleak bakotxak etxera eroandako bixiguedo an lagaten ebenian, diru apur bat jasonaian.

Txantel aregaz joan bear izaten zan kofradixako diruzaiñarengana dirutara, astean bein-edo. Ta kontu au be aspaldi amaitu zan ta izena be bai. Txantel itza esan ez dala Ondarru'n urte gitxi ez dira.

Txartela ta txantela gauza bardiñak ziran, paper pixketak, erderazko «billeteak». Ta gaur egunean billeteak len baiño geiago dira ta itz orreik jarraitu eikeen. Esate baterako, paperezko dirua sortu zanean ondo etorkon «diru txartela» baiña erriak beste itz bat sortu eban, «diru papera».

Lendik «txartel» itza izan ez balitz txarto-txarto be ez egoan.

KAMIÑAZPI



OLINPI-JOKOAK

ORAIN-ALDIKO OLINPI-JOKOAK

Orain-aldiko lenengo Olinpi-Jokoak ATENAS errian egin ziran, 1896 urtean, antxiñako Grezitar Jokoen omenez eta oroigarriz. Ordutik ona, lau urterik lau urtera ospatu izan dira, guda-urteetan izan ezik:

	Noiz	**Nun**
I	1900	Paris
II	1904	St. Louis (Amerika)
III	1908	Londres
IV	1912	Estokolmo
V	1916	—iñun ez, gudagaitik—
VI	1920	Anberes (Beljika)
VII	1924	Paris
VIII	1928	Amsterdam
IX	1932	Los Angeles (Am.)
X	1936	Berlin
XI	1940	—iñun ez, gudagaitik—
XII	1944	—iñun ez, gudagaitik—
XIII	1948	Londres
XIV	1952	Helsinki
XV	1956	Melbourne (Australia)
XVI	1960	Roma
XVII	1964	Tokio
XVIII	1968	Mexiko

AURTENGO OLINPI-JOKOAK

Aurten izango dira, beraz, ogeigarren Olinpi-Jokoak. Alemania'ko MUNICH errian. 120 Laterrietako 10.000 kirolari bilduko dira bertan, arlo bakotxean onenak dirala erakutsi dabenak.

Ogeiren bat kirol-mota izango dira. Nagusiena, beti bezela, ATLETISMOA. Gero, igariketa, soinketa (jimnasia), burruka ta abar.

Irakurle asko arrituko da «fubola» ta txirrindularitza aitatzen ez ditudalako.

Kontuan artu bear da Olinpi-Jokoetan ez dala profesionalik izaten. An jokatzeko, ezin iñundik be dirurik jaso. Txirrindulari ta fubolari ospetsuak, barriz, diru asko irabazten dabe kirol-bidez. Orregaitik, ez dabe zer egiñik Olinpi-Jokoetan.

Joko-mota bakoitzean lenengo gelgitzen danari, irabazleari, urregorrizko domiña bat (medalla bat) emoten dautse; bigarrenari, zidarrezkoa; irugarrenari, burdiñori edo brontzezkoa.

ATLETISMOA

Atlestismoa izaten da Olinpi-Jokoetan nagusiena. Len, gizonezkoak bakarrik izaten ziran, baiña orain andra ta gizonak, bakotxa bere aldetik, jokatzen dabe. Gizonezkoentzat, 21 eratako jokoak dira atletismoan.

Amar neurritako lasterketak: laburrena, 100 metrokoa; luzeena, 42 kilometrokoa. Lau eratako saltu edo jauzketak. Beste lau eratako jaurtiketak...

Ipar-Ameriketako Laterri Batuak (Estados Unidos), Errusia ta Alemania dira onenak atletismoan. Baiña edonun sortzen dira atleta bikaiñak.

ATLETARIK OSPETSUENAK

Banaka batzuk aitatzearren, iru izen dirdiratsu ipiñiko ditugu:
NURMI, Suomi edo Finlandia'koa, orain dala 50 urte lasterkarien txapeldun izan zana;
OWENS, bigarren guda-nagusiaren aurrean lasterketa laburretarako onena;
ZATOPEK, txekotarra, bere azken-lasterketa egiten Lasarte'n ikusi genduana.

PAXA

(Jarraitzeko)

estropadak dirala-ta...!

Esan genezakegu estropadak indar aundiak artu dituala. Lenen treiñerilla oiek emanik asiera, geroz asten dira treiñeru aundiak.

Aspaldi joan ziran urte aietan, Bilbo ta Donosti'n jokatzen zuten. Urte guzian beoien zai egonik, Abra'ko ta Kontxa'ko itxasoak jendez beterik egon oi ziran urtean beingo arraunketak txalotzeko ta begiari emateko ikusgarririk egokienak.

Gaur egunian oztea, estropadak ba dirudi ostikoketaren antza artu dula. Nola, Santoña'n, Santander'en, Koruña'n, Bilbo'n, Donosti, Ondarrabi ta... alajaiña, orain Donibane Loitzun'en ere bai!

Treiñerilletan, dakigunez, GETARIARRAK izan ziran garaille Donosti'ko Kontxa'n. IZAR idazleak esaten dun bezela «Galdetu bestela orretzaz ain jator idatzi eban getariar Donosti'n biztanle dan E. Ozki'ni».

Eskerrikasko IZAR. Getari'k ala ere, arraun kontuetan ez du zer esan aundirik. Bai daude ikurrin bizpait Getari'ko udal etxean. Bat Donibane Loitzun'en irabazia (nik al dakatit ze urtetan...) Ta orra, igarotako larunbatean, Garagarillaren 8'an, berriro nola jokatu duten lau treiñeruk.

Lasarte-Mitxelin, Pedreña, Ondarrabi ta Kaiku. Lenen etorriaz Lasartearrak. Lau treiñeru oien etorrera onela izan zan:

Lasarte-16.21" 1/5.
Pedreña-16.27" 1/5.
Ondarrabi-17-03.
Kaiku-17.08.

Izan dira ere estropadak Santoña'n ta beste nunbaiten. Emen guziak idazteko, luzeegi izango zait eta esan dezagun zerbait aurtengo Donosti'ko berri.

Jakin degunez, aurten zortzi treiñeru etortzeko dirala. Ondarrabi, Lasarte, Orio, Getari, Pasai S. P., Oyarzun, Donosti ta... beste bat edo. Zumaiarrak dakigunez, ez dira etorriko aurten. Tamalgarri zaigu benetan. Estropa polita ikusteko geunden bestela, zumaiarrakin donostiarrakin eta getariarrakin... Beste oiekin, Lasarte ta Orioki'n, ezin esan ezer egingo duenik gorago izendatu ditudan oiek.

Getariarrak oso bero dabiltzen albisteak ditugu. Ni Getari'n izan nitzan lengo batian eta, aiek oso alai daude, itxaropen aundiakin noski...

Ala ere, ez dute, nere ustez, aurrena ta bigarren etorriko diranik. Ortan or daude oriotarrak eta lasartearrak.

Getariarrak ala ta guziaz ere, alegiñak egingo dituzte. Treiñeru berria erosi zuten, ortako erriak emanda, ta gaiñontzeko biztanleak. Bertako arraintzaleak izugarrizko laguntzak eman dizkiote. Pentsa, iru kintal atun bakoitzak, ontzi bakoitzak.

Beraz, laguntasunen bearrian ez daude. Gogoa etzaiote galduko ez arraunlariari ta berdin erri guziari.

Nik ez nun uste olako berotasunik izango zutenik getariarrak. Naiago nun nik ez etortzea. Obeki jarrai bai zuten treiñerillekin ta ez treiñeru aundiekin. Baiñan, Getari'ko arraunlariak oso maite dute kiroltasuna, ta orretxek eraginda edo, bai omen datoz Donosti'ra.

Aurten, lenengo igandean asi ta bigarren igandean bukaera emango dute. Lenengoari 200 milla laurleko ordainduko die, orain artean baiñon geiago... ta, arraunlari bakoitzak jango ditun txuletak ordaintzeko: zer da...?

Dana dala, gaiñontzeko berriak, ikusi ta ondoren emango ditut. Orduarte beraz.

E. OZKIN

NORBERE BURU-ILTZEAZ

Gai onetzaz lantxo bat irakurri aal izan dot oraintsu GACETA DEL NORTE egunkarian. AGUR'eko irakurleentzat ere jakingarri izango dala gai au, ta idazteari emon dautsat.

Zergaitik erasoten dautso gizonak bere buruari...?

Eldu ete daiteke, bada, gizona bere burua gorroto izatera? Eriotzak, bizitza oneri agur egin bearrak guztioi eragiten dausku dardar. Ez dago amaren semerik azken-agur orrek kezkatuko ez dauanik. Zelan sortzen da, beraz, gizonaren baitan norbere bizitza-gurpilla bat-batean gelditzeko gogo ori?

Zorion-billa gabiltza guztiok munduan. Norbere buruaganako maitasuna da gure eragillerik indartsuenetarikoa, indartsuena ez bada. Ala ere maitasun au ez dogu beti zuzen ulertzen. Zorion-egarri orrek uts egitean, zeri oraturik bage, goian zeruan eta bean lurra aurkitzen da gizona. Zoritxarrez beterik, leza-zulo baten legez, urteera bagarik dagoanean, orduan zoritxar guztien amaia izango dan eriotza billatzen dau.

Bizitzaz azpertuta, naskatuta egotearen ondoren negargarria!

Erri aurreratuetan, industri-errietan batez ere, ugariago dira buruerailleak. Austria, Alemania, Suecia ta Dinamarka doaz aurretik. 1966-gn. urtean 100.000 biztanleko 23,1 Austria'n, 20,5 Alamania'n 20,1 Suecia'n, 20 Dinamarka'n...

BURU-ERAILLEAK ETA ERLIJIÑOA

Erlijiñoak zer-ikusi aundia dau emen. Au ukatu-eziñekoa da. Amaiera trixte orretara daroan abiadan galga indartsua dogu. Katoliku zintzoa dana edo erlijiñoan ondo oiñarriturrik dagoana, nekez abiatuko da ortik; nekez artuko dau bere bizitzaren aurkako erabagi ori. Arrisku ori asko gutxitzen da kristau-siñesmenean sendo dagozen errietan. Azken urteotako zenbaketak (estadistikak) agertzen dauskuenez, Italia'n 100.000 biztanleko 5 bakarrik izan dira euren buruak il dituenak; eta Irlanda'n gutxiago ondiño: bi bakarrik. Geroko itxaropena edo «bestaldeko» ustea euskarri sendoa da, ikusten dogunez.

ZAARRAK ALA GAZTEAK GEIAGO?

Azken-erabagi orretara eltzeko, asko bear dau gizonak. Bizitzari gogor lotzen gaituen sustraiak atera aal izateko, baldintza gogorrak bear dira. Urteen gorabeerak ere badau zer-ikusia. Zaarrak ala gazteak geiago? Gazteek dirala bide orretatik sartzen diran geienak. Au da inguruetan zabal dabillen iritzia, baiña iritzi okerra zenbakietara joez gero. Buru-erailtzerik geienak, 60 urtetik gorakoen artean jazoten dira. 100.000 biztanleko, 19 buru-eraille 15 urtetik 25'ra bitartean dabiltzan gizonezkoetan; 84 burueraille 80 urte inguruan dabiltzan gizonezkoetan. Zaartzaroak berak eragiten dautso gizonari, bere gaixo ta atsekabez, emengo bizitzaz gogait egitera. Baiña zaartzaroak berak baiño geiago, zaar askoren egoera ta bizi-modu trixteak: munduan ezertarako ez dirala, euren buruak bertan-beera utzita ikusteak. Gizarterako, lagunarterako sortuak izan giñan, eta orrela baztertuta bizitzerik iñork ez dau nai. Bakartadean, bide-bazterrean botata dagoan tresna zaar gauzeztanaren antzera norbere burua ikustea, gogorra izan bear nai-tanaiez. Ona emen zaar askok euren ondorengoekandik artzen daben ordaiña ta esker-ona! Urteak euren egitekoa egin eta persona bat iñorako ez dala dagoanean, errez aaztuten gara aren aurretxoagoko bizitzaz; baita geure ongille aundi bat izan bada ere. Orrela, bizitzaz azpertuta ia-ia geiago ezinda goian zerua eta bean lurra aurkitzen dira asko. Ortik zorabio bat, une bateko bututaziño gaizto bat naikoa dira norbere bizitza amaitzeko...

Azken negargarri orretara daroen beste eragille batzuk ere badira zaartzaroez gaiñera: Alarguntzea, ezkondu bagarik geratzea, ezkontza apurtzea edo senar-emazteen arteko gora-beerak, semerik-eza, uri aundi bateko bizi-modu urduri ta zalapartatsua, alkoolkeria ta abar. Gizonezkoen artean geiago dira, gaiñera, orretara amaitzen dabenak. Andrazkoak, eriotzara ziur-ziur ez daroen beste bide batzuk aukeratzen ditue geiago ezinda dagozenean: pastillak, esate baterako.

ITXAROPEN-URRUTIZKIÑA

Geiago ezinda, burutaziño gaizto orreekin dabiltzanak, «Itxaropen-urrutizkiñera» joten dabe sarritan. Euren barrua norbaitegain ustu bearra izaten dabe; ezagutzen ez daben norbaiteri barrua azaldu ta arekin asaskatu bearra. Amaikatxok zor dautse euren bizitza «Itxaropen-urrutizkin» onei. Azkenorduan asko dira urrutizkin orrei esker euren asmo gaiztoak itzi dituenak. Alemania'n oso zabalduak dagoz. Euskalerrian, Bilbon daukagu; Españia'n ere badira Sevilla'n eta Madrid'en beintzat. Arazo larri orretan lagundu leikien karreradunak osotzen dabe urrutizkin orreetako taldea: Teologoak, sikologoak, lege-gizonak eta abar. Etsipenean edo ustea galduta dagozenak bakarrik ez dira urrutizkin orretara joten dabenak. Badira urruztikin orreetan deitzera eragin leikien beste arazo batzuk ere: maitasungora-beerak, ezkontza-auziak, zaar eta gazteen aitu-eziñak, eziketa-arazoak, alkoolkeria ta abar. Laguntasun-eske deitzen dabenak, geroago ta geiago dira. Andrazkoen deiak gizonezkoenak baiño sarriago entzun oi dira. Jai-egunetako gabetan izaten ei da, batez, ere, eten bagako ttirrin-otsa.

Negargarria da au. Gizonaren maitasun-egarria! ta ezin ase, iñun aurkitu ezin maitasunik eta ezezagun baten abotsaren billa...! Egia esan, guztiok gara anai-arrebak eta zergaitik dagoz asko ta asko bakartadean? Zergaitik dabiltza gure anai-arrebak maitasun-pittin baten billa urrutizkin orreetan? Nork emongo dautse persona orrei guk ukatzen dautsegun poztasuna?

Amaikatxo bizitza galtzen dira munduan, eta guk ez dogu orretan zer-ikusirik?...

BARAIZARRA'TAR LUIS

O A R R A

OPORRALDIAK

Irakorlakoak be euren oporrak izango dituela-ta, guk be beste orrenbeste egingo dogu. Ta orrela gaurko legeekin, gaurko mitoekin eta gaurko aurrerapenekin be «a tres» izango gara.

Orra ba, Dagonil onetan, pare bat ale gitxiago jasoko dozuez, il orren 12'gnengoa eta 26'ganengoa betetzen aleginduko gara, ta orrenbeste egingo ei-dauskue irarkorlan.

Bitarten, AGUR'ekook zilborrak eguzkitan baltzituten izango garan artean (au tamala, AGUR'eko lanak, beste ogibideko lanetatik at, gabaz egiten ditugu, ta gure oporraldi orreitan ez da eguzkirik izaten) bitartean ba, ekin zuek gogor AGUR indartzen, zuen lan politok idazten ta, udako baikortasunean, arpidedun geiago billatzen. Orretarako emen izango gaituzue, oporrok uts egin bear izaten ba'ditugu be.

Izan danok ongi; kontuz jende arteko zapalketekin, eta bitxabaleko zoroekin, baita eltxo eztenkariekin be! Zorionak eta laster arte!

AGUR

itxaso batetik bestera

«Irrika biziaz iritxi giñan Montevideo'ra, emengo euskaldun koloniarengatik geienbat. Oso biltoki polita dute, «Euskal-Erria» izena darama. Oso ongi artu ginduzten, arrera ezin obea. Nee erriko bat, Beasain'go batekin topo, eta sendi ezagun batekoa: Juan Cruz Iguain».

«Emen, Montevideo'n igaro degun astean gauzarik nabarmenena politika aldetik jaso eta ikusi degu. Espetxetik, gu emen giñala, amabost tupamaroek iges egin zuten. Opor nagusi ikaragarri bat, eta, gero, «estado de guerra» ipintzea. Kalean ginjoazela, edozein iskiñetatik barna ikusten genituan soldaduak, baita poliziak beribil bateri segika, eta abar. Benetan beldurgarria izan zan Jorraillaren 11'tik 16'era bitarteko aste ori, politikari buruz, noski. Ala ere, oituta edo, biztanleak, erria, betiko giro paketsuan zebillen. Guk, iskanbil auek diralata, «Teatro Municipal «Solis»en, jardun bearreko egunetan bi opor egin bear izan genituan, au da sei azalpen eman bearrean lau bakarrik emanik».

«Iru aste egin ditugu Argentina'n. Buenos Aires'ko Teatro Coliseo'n bi aste oso-osoak. Eta 1.800 exerleku ditu. Ikuslea edo publikoa ongi bildu zitzaigun. Europar uri nagusien tenkerakoa da Buenos Aires. Uri eder-eder bat. Anitz euskaldun agurtzeko zoria izan genuan, Beasain nere jaioterrikoak bat baiñan geiago. Dan-dana eskeintza zan, bazkaltzeko, afaltzeko, uria ikusteko... eziñekoa biurtu arte orrenbeste konpromiso. Txit kilikagarria guztia, adiskide jator askoak egin bai-nituan gaiñera. Emen asi gera gure emanaldietan aizean zabaltzen, gurea...

Geienentzat, txalaparta gauz berria da, baiñan ziur gaude atsegiña izan zaiela, kritikalariei ere».

«Txile'ko Santiago'ra «Transandino» bultzi edo trenean iritxi giñan. Andes guztia kruzatzen du, kremallerazkoa da, onegatik oso motela, baiñan guztiz ernagarria. Iru milla metrora igotzen da. Ezkereskubian metro biko edurrak, antxen, alboan, Aconcagua... Iskanbil oso txar bat izan genuan bultzi koskor onetan. Erreserbakiko exerlekuak genituan, baiñan jende asko egon ta bertan exeririk zeudenak aldegin nai ez. Eta amabi orduko ibillaldi neketsua izan! Eztabaidan asi giñan, zarata bizian, ea mutur joka, egiz emakumeak ekin zioten jotzeari, gizon aiek kutxillo luze-luze batzuek erakusten zizkiguten... ea-ea aundiren bat gertatzen dan».

«Txile'n aste beteko egonaldia. Uri jator bat da Santiago. Emengo euskaldunak «Zazpirak-Bat» deritzan batzokia dute, berealdikoa. Emengo gure jardunketa, aktuazioa, berebizikoa izan zan. Baita Concepción eta Valparaiso'n ere. Gero, ego alderago jetxi giñan: Temuco, Traiguen... Mixeri asko ikusten da... ongi daude Allende baten neurriak, aberatsei ken beartsuei emateko. Alabaiñan su ta gar daude emengo euskaldunak Allende'ren aurka (egokitasunean bizi dira), baiñan, egiz, bearrezkoa dala deritzait erri xea mixeri gorrian bizi bai-da».

Baiñan Bolivia'ra joateko ordua eldu zaio «Etorki»ri.

UXOLA

donosti

Orain illabete inguru, Easo abesbatzaren eresaldian izan giñan. Beti bezela, abeslari trebeak azaldu zitzaizkigun! Ondo irabaziak dituzte, ludian zear irabazitako sariak!

Lenengo zatia euskal abestiz osatua izan zan; eder ederra! Bigarrena ere bikaña guztiz: Bakarka abesti politak eskeñi zizkiguten. Irugarren zatian baiña... (au da lana !«baiña» au ezin baztertu bere idazkitan!) Lenengo, Errusitar abesti batzuek abestu zituzten zoragarri, ordurarte oso ondo zijoan guzia, baiña bukaera —neretzat beiñepein— tamalgarria benetan. Iru «erdel» abesti besterik etzituzten abestu, eta ain zuzen, bukaeran; baiña ezta au bakarrik, azkenekoa, zoritxarrekoa! Neri beintzat, ordurarte izan nun poz guzia joan zitzaidan batbatean!

* * *

Pozgarria joan zan illean, Donosti'ko Santa Mari elizan izan genun elizkizuna, gure aurtxoen Sendotza artzea zala-ta. Aspaldiko urteetan ez genun Sendotza euskeraz bakarrik izan, bi izkeretan baizik. Orain urte asko amalau edo amabost gutxi gora-bera, nere txikiak Ira'n ikastolara joaten ziran garai artan.—Oraingo ikastola aundiak ikusita, oso gutxi oroitzen dira, guda ezkero (guda baiño len ikastolak ba-zirala gauza jakiña da noski eta Ira, ikastola bateko irakasle zala ere bai) guda zekero ba, bera izan zala lenengo ikastola izan zuna, bere etxean, zailtasun eta oztopo artean; ikastolak «oraingo oiek» *asmatuak* eta *sortuak* ez dirala alegia... Baiña noan arira. Orduan ba, Ondarrabi'ra joan giñan, aur taldearekin, an, Aita Larrañaga gotzai jaunak, euskeraz sendotza eman zezaien. Elizkizun ederra eta arratsalde ederra igaro genun. Andik aurrera eztegu orrela egiterik izan, eta esan dedanez bi izkeretan egin izanda orain arte, Donosti'n beiñepein. Jainkoa'ri esker, aurten berriz ere euskeraz, EUSKERA utsean, EUSKERA JATORREAN izan degu.

«Orixe» ikastolako aurrak genitun an, eta Santa Mari, aundia izan arren, ederki betetzen zuten beren abestiz, an giñan aundien laguntzatxoarekin, noski. Noizean bein une alaiak eta pozgarriak ere izaten ditugu, zorionez!

* * *

«Donosti berri» alkarteak, il onen, Uztailla'ren 29 eta 30'errako Euskal Jai ederra eratu digu. Donosti'n orrelako jaiak izateak poza ematen du. Emen azalduko dizuet egitaraua:

LARUNBATA, illak 29

4 ta erditan — Easo enparantzan Euskal dantza txapelketa (aurrentzat).
Ondoren aur dantza-talde agerketa.
Gaueko 11'tan.—Ugaletxearen pelota lekuan, «Uda Berri» Tolosa'ko dantza taldearen saioa.

IGANDEA illak 30

Goizeko 9 t'erdietan, txistulari taldea, auzoan zear ibilliko da baztarrak alaitzen.
10'tan.—Karmeldar'en elizan ERRI MEZA, bertsolari, dantzari, e. a.
Ondoren «Mutil Dantza» karriketan zear.
11 t'erditan.—Easo enparantzan, Lasarte'ko ikastolako aurren saioa; bertsolari, dantzari aizkolari ta guzi.
5'tan.—Dantzari talde saioa; bakoitza bere ekitaldi berezienarekin.
Ondoren «erromeia» illuntzeko 9'ak arte.
Gaueko 11'tan.—Euskal abesti jaialdia. Etxamendi, Larralde, Eneko, e. a.
Jai ederrak ditugu ba, Amara'n. Goazen guztiok alaitasunean eta alkartasunean bi egun eder igarotzera!

AMALE'K

Martin Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

CASCO VIEJO
TENDERIA

Boutique
Cearra
Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

ERRIETAKO BARRIAK

Ondarroa

ELEIZ-IKASTOLA BARRIA

Ezagun da, bai, eskola guztietan ikastaroa amaitu ta oporrak asi dirala: naibeste umek alaitzen dabez gure kale ta enparantzak.

Eleiz-ikastolako ume poxpoliñak be egin dabe egaz, kaleetan zear, euren jantzi urdin ezagun-ezagunakin... Udaldi eder bat igaro dagiela ta urrillerarte.

Eleiz-ikastolan eun eta lärogei ume egon dira aurten. Bost andereiño euki dituez. Benetan andereiño jatorrak irakasten eta esku onekoak umeak eziten.

Datorren ikastarorako ume barri asko dagoz izenak emonda, orregaitik beste andereiño barri bi edo iru bear izango doguz gitxienez.

Ume guzti oneiri «Ministerio de Educación»eko lege barrietan bide bat emoteko. Ondarro'ko Eleizeak ikastola barri bat egiteko erabagia artu dau.

Bost pisoko ikastola eder bat izango da. Planoak Obispaduko arkitektoak eginda dagoz eta, jenteak ikusteko baztarren baten jarriko dira.

Geure erriko zaindariaren omenez «Antigua'ko Ama'ren Eleiz-Ikastola» izango dau izena.

GARITAONANDIA

Arratia

Amets dagit, amets, mutil koskorra izan nintzaneko aroari gogoan leku egiñik.

Olabarri ta enparantza zaar ingurueta-koentzat txitxi-burduntzi tokia izaten zan Motxogan'go pago bakarraren kerizpean nago bakar-bakarrik, ezarririk... ametsari emonik.

...Eta, ene! Leonardo dator Dima'tik, zaldi bik aptx-otska dakarden burdian. Sola-guren'go bidean gora doa Bernabe Txiki; Patxi Plaza barriz etxeinguruan agiri da betiko beraren burrus txiki ta guzti.

Errekarako bidean doa Imilio Zentalea arraiñetan, zuri-gorri diran erbitxakur bi daroaz orpoan-orpoan, eta Joaniko'k Erbi-solo'n daragio bedar ebaketa-lanean. Aulkian ezarrita, erdi loan, Pedro Abarketeru; Anbros Inderra'k itxartu egin dau baiña, alboka ta soiñu.

Olabarri'ko orma arteetan Gondra'k ma-txayenak iñausiten ditun bitartean, Janpulo' ren etxeak txondorra dirudi, dana dago, ba, ketan. Eta titirri-tatarra etxerantz etorriz datorren Gereta'ko mutua, Angelatxu'ren zubi-orman ezarri da Satxiturri'ri begira.

Orain, ostera Landakoetxe'tik ibilliz dator, ferierako itxuran, gizonezko mosu-gorri biri-bilkotea: Eta larunbata izanik nork esan Anton Porru ez danik!

Guda zitala ezkeroz Iurre'n jayoak izan diranen artean nork daki Motxogan'go pa-goaren barririk, Angelatxu'ren zubia ta Satsiturri non izan ziranik?

Emen aitaturiko gizasemeak, orain ezkero, zeruetan izango dira gure zain, eta ezer garbirik eta argirik nai dauanak itaundu begio aititeak diranai.

BEGOÑA'RA

Begoñatarren baserritar Alkarte Etxean egunero alkartu eta astero-astero arretaz euskaldun zintzoen aldizkari au irakurten daben J. Agirre bertsozaleari, ezkontza-bilduerrez dardarka bizi dan A. Udaberano'ri, Josetxu Artxanda bake utsari, Inazio indar-tsuari, Dionixio medizale amorratuari, t. a., agur ta erdi laster arte.

LANDAJUELA'TAR A.

Bermeo

Esan geinke, aurtengo bokart-aroa, «bokart-kosterea» esaten dogu errian, amaitu dala. Arrain txiki onek, aro onen asieran, Jorraillean, ez eban itxaropen on edo aundiko antzik ekarri. Ta, arraintzan ekingo ete-zan... beste aldeko gure anai-euskaldunak, itxasoetan, beldurrezko esanaiak agertuaz, mugaldez besteko «guda-ontziak» itxasoak saintzen ete-egizan eta... Baiña beldur ori, laster baten, eguraldiak aldatzean lagunduaz, galdu zan.

Gure irabazmeneko bokartea agertu zan itxaso zabalian, eta benetan ongarria. Itxas-ontziak, batzuk geiago eta beste batzuk gitxiago, baiña danentzat izan da irabazpena. Ta, nork ez daki egin dituzan salneurriak Benetan goitikoak, gaur egu-nez, gauza guztiak daukez igoerak, ta orrela geure ardurak, batez bere, «Gizar-teko Aroak» edo «Seguroak» benetan jaso dauskuez goiko mailletara; ta ordain-tzera beartuak gara Lotazilletik asi ta Jorrailleko alderaiño geldi egoniak be. Au da benetan «gaurkotasunezko ordain-ketea» edo «moda de paga». Ta, zelako ordaiña jasotzen dabe gure arraintzale zarrak? Itandu eureri; erantzunetik las-ter jakingo dozue-ta.

Bai ba, Bilbo'ko erdal-izparringi baten, esan naiak: Arraintzaliak irabazte aun-diak eta ugariak izan dituezela, zabaldu ditu. Ta, orrela etorriko jakuz ostera be Hazienda'ko Zerkalariak, euren txante-letan gorakadak ipiñita. Au bai dala kontua! Irabazteak aitatu ta ardurak eta emonak ixildu. Orreik dira «konbenien-tzizko zabalkundeak». Zergaitik ez ditu eguneroko orrek aitatu gure lan eta ibil-tearen gogorkadak, eta uts edo ez-unee-tako egunak, edo neguko egoera luzeak? Obe litzake gizon orreintzat, orrelako zabalkundeak egitea baiño, itxasoetako ez-uneak nundik edo zelan irabazteko bidean ipintea lortuko doguzanaren bu-ruasteak ba'litue.

Igaro doguz gure Gaztelugatx'eko Doniene eguna ta jaiak, baita arraintza-leen zaindari Kepa Deunaren eguna be, eta orain danak gertakizunetan, geure itxasontziak atonduten. Egaluze edo atun-aroari asiera emoteko, aste onetan geienok urtenik, «Finisterre» aldeko itxa-so zabalara joan.

Arraintzaliak, urteera on bat izan daizuela, ta Begoña'ko Ama'ren zainda-ritza zeuokin izan!

ERIOTZAK

Bai ditu aurtengo urteak gure euskal-dun anai artean eroanak. Bagillaren 30'gnean, osatebakuntza baten ostean, Mugartegi'tar Damaso il jaku. «Itsua» izenagaz ezaguna ta entzute aundiko antxiñako txistularia, Bermeo, Gernika ta Ondarru'n ibillaldi asko egiñikoa.

Baita, aurrerago juan yaku, «Mendi», Kanpos'tar Dionisio, mendigoizale za-rren artean ezaguna. Aviles aldean gaxo-tasunak artuta, bere guraso zarren aberriko lurraldean il eta liurreratua zan da.

Euron adizkide izan giñanok, gure otoitzetan gogoratu daiguzan, eta jaso beitez euren sendikoak gure atsekabe laguntzak, eta Jaungoikoak betiko Atse-dena emon!

IXIKA

Galdakano

«SOIÑU-ZALERI»ri

«Bai dakite, bai» idazpurua dabela, ta AGUR'eko laguntzaille guztiok agurtu ondoren, bere idazlan laburtxoa baiña mamintsua, onetara asiten dau, AGUR'en 46'gn zenbakian. Eta mamintsua ba' diñogu, ez da bertan gu aipatuten gaituzalako, idazlean darabillen gairen gaurkotasunagaitik baiño: «Irakurten ditut Arenaza'tar Josu'ren ataltxoak; egi mardulak esaten ditu sarritan (geienetan esango genduke guk). Bere euskerea garbia ta erreza da neretzat beintzat... Baita Galdakano'ko Basa-Jaun'ek ere, itz batzuek gipuzkeratik eta naparke-ratik sartzen ditula, erreztasun aundia ematen dio bere idaztankerari, guk ulertzeko».

Eskerrak ezagutzen ez zaituten «Soiñu-zale» adizkide zintzoa. Benetan poztuten naz nere idaz-lantxoak ulerkor egiten yatsuzala jakitean. Egia esateko enaz oartu darabiltzan itzak jatorriz gipuz-kera, naparkera edo beste edozein euskalkitik dator-kiguzan. Bardin yat jatorriz euskerazkoak izan ezketiño.

Begira ibilten ba'naz, euskalki bitan edo geiago-tan darabillazan itzak, jatorriz euskerazkoak izanik, zein dan euskaldun geienen artean erabilten danaren begira. Egia da, baita, naiago neukela Sabindiar euzkerea erabilli, orretara lenago idatzi nebalako, ta bere euzkerea ta irakaskintza guztiak maite dodazalako, baiña, gure izkuntzea benetan maite ba'dogu, ta berau biziko ba'da, geroago ta beartuago gagoz onen batasuna lortzeko. Ala ta be, «batasun» ori ez gazteleraz eta prantzeras naastatuta; euskera garbi txunkunez, oiñarrizko euskeraz orraztuta baiño.

Orretaroko baiña, gure ustez, «geurekeriak» pizka bat lagata, «erdira» etortea izango litzake egokiena; euskalki bakoitzetik itzik garbi ta jato-rrenak artu ta idazkera ulerkorra erabilli. Jakin-tsuak, sakon eta jakituriz idatzita, ta gitxiago ikasiok, arein jokabideai al dogunik ongien jarrai-tuta.

Aldi ontan dabiltzazan beste «batuak» eta «apainketak», naastakeriak esango genduke guk, ez dira irakurkerea zaildu ta, beraz, ganbaran daukagun euskera maitagarria amiltokira bultzatu-teko baiño.

OSATUEBANKUNTZA

Garil onen lenengo egunetan, Bilbo'ko Guimon'en osatetxean, Ingunza'tar Miren-Agurtzane, Apella-niz'tar Maiai'ren emazte argi ta zintzoari osateba-kuntza gogor bat egin eutsoen. Ebaketa garrantzitsu orretatik ongi urten eban, ta luzeroko jarduna izan bear ba'dau be, uste dogu, laster egingo dabela aurrerakuntza bearrezkoa andera agurgarri onek, eta onetara, osatuta, laster ikusitea nai genduke gure artean euskeltzale au.

JAIOTZA

Seme eder batekin, lenengoa, Zelaya'tar Gotzon eta Zamakona'tar Miren-Elixabet senar emazte gazte euskaltzaleak, euren sendi barria ordinuta ikusi dabe, Bengoetxe'ko euren auzunean. Eztago esan bearrik, guraso barriak eta aititeak pozez siñistu ezinda aurkintzen dirala, ta batez, be, AUGUR onen irakurle dan aitite Sabin, ekarri dautsoen gizaki kuttunagaitik. Gure zorionik be-roenak guztiori.

ERIOTZA

Garil onen 12'gnean, larogei ta zortzi urtedun zala, Oleaga'tar Zipiri galdakanotar jatorrari Jaunak Bere aldamenera deitu eutsan. Guztiz eza-guna zan gure errian gizon zintzo ta euskaltzale au. G. B., adizkide on ori, ta laguntzen dautsegu atsekabean bere sandikide guztieri.

BASA-JAUN

Urduliz

SAN FERMIÑ'EK

San Fermiñ egunek, Iruñe burure etorten jakulako edo, jai useiñ bet deko gure artian. Geiau oindiño Urdulixen. An bai egun andie ixeten dala.

Anaie bat dekot an eta egun orretan bezkariten joateko esan eusten, eta, jakiñe, pozik joan nitzen, jateko beti pozau biarre-rako baiño.

Mungie'tik urten, Gatike ta Butroi'ko palazio edarran eurretik paseu, eta Laubi-dietara sartu nitzen. Bertan «Cuatro Ca-minos»era esango leukie. Zergaitik ez ete ditue euskerazko exenak imiten?

Gero andik bera ta bera «Casas Nuevas» era joan nitzen. Zegaitik ez ete deutsie «Etze-barrieta» esaten? Nire koñetiak eta lobak pozik artu ninduen. Baia erdera ein biar, erdeldu artian bixi dire, eta zori txarrez, beti eiten deustie erdera. Txikienak, Mari Karmen' ek euskera asko eztaki jakin be. Txarito'k geitxuau, baia gitxiten eiten deu. Beste loba bi mutillek dira: «Ito» ta Iñaki. Onek euskera jakin ondo dakie, baia ein gitxi.

* * *

San Fermiñ'en plazara joan nitzen gero. Santue dotore egoan, jantzi gorriekaz eta obispo-txoto gorriegaz. D. Anjel etorri zan ara mezia esateko. Auzotie erdeldune da, eta mezia, be, zati on bat, erdera ixen zan, geuze batzuk euskera be bai. Berbaldie be eiñ euen D. Anjel'ek. Dana egon zan polito.

Meza-ostian dantzari batzuk agertu ziren. Nik enekien nongoak ziren, baia eurek imiñi euren kartel andi bet:

GURUPO DE BAILES VASCOS
GURE TXOKO
BERANGO
Zegaitik ez:
Berango'ko
gure txoko
dantza-taldea?

Ondo eiñ eurien dantzan. Zorionak: dantzarieri, txistularieri, baiten an arduretsu ibilli zan neska bateri be. Eztakit nor dan. Eurrera, Berango'arrak, dantza-taldia ta zuen ikastolia ta dana.

* * *

Dantza-ostian mutikotxuek asi ziren la-pikoak apurtuten. Barriak ein genduzen. Bat txikiegie zan eta bere makilliagaz be ez zan lapikora allegetan. Au be polite ixen zan.

Gero amaiketakoa emon euskuen. Ni D. Anjel'en ondoan jezarri nitzen eta berak esan eustezan gauzek pozik entzun nituen, batez be Fidel Castro'gaz Cuba'n berak ixen zituen goraberak.

Gero bezkarie. Nire koñetia koziñera ona da, eta bezkari gozo-gozoa imiñi euskun. Bezkal-ostian beste gixon bat etorri jakun. Carrillo esaten eutsien, bere apilledue ixengo da au, Onegaz batera Palmeras esatentsien bar batera joan giñen beste kafe bat artzien. Gero, atzera etxera etorri te, luzero egon nitzen Carrillo'gaz berbetan. Mundu asko ikusiko gixona ta buru argikoa da.

Etseko danari agur ein eta neure etsera. San Fermin egune pozik paseu nuen.

* * *

Oarra: Juan Joxe Arrizabalaga'k Agur'en Markiña'ko euskerea ain polito egiten daua-nez, neuk neure amagandik ikasiko eukeraz egin dot lantxu au. Zori txarrez, abotz ba-tzuk ezin izan dodaz agertu, esaterako *d* ta *t* buztiak; *z* ta *s* biak erabilli dodaz, baiña ori ez da amagandik ikasia. Erritxuetako izkerak noizean bein erabiltea bearrezko gauzea dala-koan nago. Siñistu-eziñekoa da oneik daben aberastasun, batez be abostegi edo fonetika aldetik, baita eurak darabillezen izkuntza-legeen jakituria be. Onetzaz, Euskalerri guztia arakatuez, lan sakon egiteko ustean nabil. Neure ustez, urte asko igaroten diranean, izkuntzalari jakitunak errietako izkera onein billa egarri biziz etorriko dira AGUR'era. Zelako egarriaz billatzen diran gaur Alpes mendietan galdu diran eta galtzeko zorian dagozan izkuntzetako idatziak!

GAMIZ

Oñati

AGUR ontako lentxobateko idazki batean, idatzi nuen, Leaniz Barrutia'tar Esteban eta bere emazte Aranburu'tar Kaitana'ri buruz agertuaz, euren bizi-tsako gora-bera batzuk, Kaitana, zanak, 1.920'tik 26'ra, iru euskal irakurketa leiaketetan Oñati'n, Bergara'n eta azkena Donostia'n, iruretan txapeldun irten zala.

Barrutia jauna berriz, nola gaztetatik Sabindar zintzoa izan zan. Eta bizi zan garaian bere pentzakeretan zerabilzkien gogamenak; bera ta bere emaztea iltzen ziran ondorean ere iraun zezatela. Bere azken gogo edo testamentua agertuko nuela.

Ara emen itz gutxitan agertu bere Azkengogoa. «GORIBAR GOITI»KO ba-serriko ondasun danak, bera iltzen za-nean, bere emazte Aranburu'tar Kaita-na'rentzat izango zirala, bizi zan arteko GOZAMENAREKIN, eta Kaitana iltzen zanean, GOIRIBAR GOITI'KO ondasun danak, erritako izateko, erriak, berak onduen zerizkion gauzetan zabaltzeko». Baiña ondasun oien aldera, zertan ditu ori xautu edo gastatu, baldintza bat jartzen dio ERRIARI: «Euskal Ikastola bat jartzeko. EUSKERA; EUSKALERRI-KO KONDAIRA TA EUSKAL LANDURA EDO KULTURA ERAKUSTEKO».

Beste baldintza bat ere jertzen du: «GORIBAR GOITI»KO Baserriaren on-dasunik, ez saldu ta ez trukerik egiteko. Eta salketa edo trukerik egingo ba'lu, orduan erriak, ondasun oien jabetasun dana galtzen duala, eta ondasun dan oiek, Laterandar Agustindarren eskue-tara igarotzen dirala». Baiña Agustinda-rraei ere baldintza berdiña jartzen die. Ondasun oien aldera: «EUSKERA, EUS-KALERRIKO KONDAIRA TA EUSKAL LANDURA EDO KULTURA ERAKUSTE-KO IKASTOLA BAT JARTZEKO».

Erriak, ongi bete ote du baldintza ori? Ezetzean gaude. Denporak esango digu. Orain, Barrutia zanaren emaztea ere il da, eta «GORIBAR GOITI»KO ondasun danak, Errirako edo Agustidarren eskue-tan gelditzen dira. Orain ikusiko da «GORIBAR GOITI»KO ondasunen al-dera, Euskal landura edo kulturak Oña-ti'ko errian, ze giro artzen duen.

Euskaldun danok; baiña bereziki oña-tiarrok, Barrutia zanaren aurrean, itzal guziarekin buruko txapela erantzi bear giñioke. Euskal landurarako eman digun irakaspen ederragaitik. Erriaren ongille bezela ez litzake gaizki egongo, kale edo beste zerbaiteri bere izena jartzea, bere OROIGARRITZAT. Goian begoz, Barru-tia eta bere emazte Kaitana!

ERRIZALE

INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

ARTZAIN ONAREN OMENEZ

ESANAK ETA EGIÑAK.—*XXIII YON buru argi, biotz zabal eta aldarte onekoa zala igarteko, bere bizitzearen bari yakitea naikoa da. Buru argia ebala ta idazle trebea zala bere idaz-lan eta idaztiak agertzen dabe. Bere biotz zabaltasuna, katoliko ta ez ziranakaz artu-emonetan oparo erakutsi eban. Eta bere biziztza guztiko aldarte ona, bere bizitzan egon eta bizi izan zan toki guztietan lautasun, ontasun eta irribarrez agertu ebala guztiak dakien gauza da. Bere urteera bizi, zoli ta sentzundun batzuk argitaltzea egoki izango dala-ta, AGUR'en irakurleen pozgarritzat emen ipiñiko doguz.*

ABADE BARRIAREN ASMOA.—*Angel Jose Ronkalli'k, bere lenengo Mezea* 1904'*gnean esan eban. Gomutakian auxe esaten eban: Beretzat eta bere lagunentzat iru gauza eskatu zituala; azkatasuna, batasuna ta bakea. Irurogei urte geroago, Aira Santu zala, bere Enziklika ospetsua «Pecem in Terris»n au esan eban: «Gizon guztien arteko bakeak oiñarritzat Egia, Zuzentasuna, Maitasuna ta Azkatasuna euki bear ditu».*

BERGAMO'KO GOTZAIÑAREN IDAZKARI.—*Radini Tedeschi Gotzain eragin eta entzute andikoak bere idazkari autu eban, Amar urte zeregin onetan igarota, gotzaiña il zanean bere bizitza idatzi eban. Idazkari izan zan bitartean abadegai-ikastetxean irakasle izan zan.Aldi atan urduri ebillen, bere adizkide bateri onu au emoten eutson: «Yaunak gure bizitzaren aldin edo balioa eskutuan egotea erabagi ba'dau beste, toki baten zerbaiten billa ibiltea barregarri izango litzake. Andigureak, lurbiran diran izaki txiro ta barregarrienak dira».*

GUDARITZAN.—*Birritako aldiz gudari edo «soldadiskan» izan zan. Lenengoa* 1902'*gnean bere oldez edo «boluntario» yoan zan, milla lira ordainduaz iru urtetik batera yatsi ta norberak gura eban tokia aukeratz earren. Bigarrenez, Europa'ko lenengo gudaldian,* 1915'*gnean, Sarjento izatera eldu zan. Lenengo «pagea» artu ebanean, lira bi inguru, lagun gazte bateri emon eutsozan «kopa» batzuk adizkideakaz edateko.*

IRRI EGITEKO ALA IRAGARKIA?—*Gaxo-zain zala, naigabe batzuk izan zituan, osagille ta gudalburuen artean abadeaganako ikusi eziña zabal ebillelako. Batez be Gudalburu batek ezetsiz eta zearretara begiratuaz gaiñera, min egiteko eran itz egiten eutsolako. Onek bere menpekoen aurrean bear eban itzala galdu eragiten eutson, eta Ronkalli'k espaz adirazo eutsonean, gudalburuak erantzun eutson: «Ez egizu txartzat artu. Ni neure barruan gixajo bat baiño ez naz, nire ames guztia, nire soiñekoari «galoi» barria ezartea da. Zuk, barriz, aurrerapide andia egingo dozu, eta goietara eldu be bai... Monseñor, Gotzain, Kardenal...» Irri egiteko ala iragarkiz izan ete zan?*

LAN AURRETIK SARIA.—1921'*gnean Aita Santuak «prelatus» eta Italia'ko Ziñeste-Zabalkunde'ko zuzendari egin eban. «Lan egin aurretik saritzen nabe. Omen au aintzat artzen dot baiña erantzunpen andi bat lez».*

BULGARI'RA ELEIZ IKERTZAILLE.—1924'*gnean esku-artean aukozan ainbeste arazo itxita, otoz-otoan Bulgari'ra Eleizaren Ikertzaille joan bearra gogor egin yakon. Baiña bere esakuna «Menpetasuna ta Bakea» zan eta apalik burua makurtu eban. An buru-auste latzak izan zituan, baiña azken baten, katoliko ta ez ziranak be beragandu zituan.*

BIURTU BAI; APURTU EZ.—*Antxiñako esakun onetzaz esaten eban: «Nik besterantza yokatu gurago dot. Apurtu egingo naz, baiña ez biurtu, batez be egite gayetan». Eta yarraitzen eban: «Eta onetan uste Eleizaren edesti guztia neugaz dagola».*

1932'KO IDAZKI BATETIK.—*«Ni, neure betiko tokian nago, au da: neure begiei ziñestu, gauzak zuzen azaldu, eta txarrari larregi begiratu bearrean onagaz poztu. Eta gero gerokoari begiratu».*

(Jarraitzeko).

MANTEROLA'TAR GABRIEL

TRUEBA'TAR ANTONIO

Ona emen Bizkai'ko ta Euskalerri'ko idazlari argitsua. Euskotarren biotzetan eskartaupada bat eta euren oroimenean oroipen alaia be aren alde izan bedi beti.

Enkarterrikoa zan eta, ezekian euskeraz, baiña Euskalerri osoak jakin bei iñoiz aiztu barik, Trueba dala literatur ororen edo lurzabalekoan gu euskaldunen oitura, izkuntza, izamen sakona, lan ta egite ospetsuak argiratu, adierazi ta ezagutuerazo ebazana. Augaitik, bere euskal gaienganako maitasun, zaletasunagaitik baita gizontasungaitik be, euskotar eta euskaldun danok jakin bear dogu Trueba'ren bizi-kondaira.

Olerkari, nobel-idazle oberen au Enkarterriko, Galdames lur-barruko Montellanos auzoan 1.819'ko Lotazilla'ren 24'gnean jayo zan. Bere gurasoak baserritar, lur-langilleak izanik, Trueba'ren bizi-modua orrelangoa izango zan aurki. Baiña anai-gideak bere elerti, literatur zaletasuna aldatu, besteratu eutson.

Berak diño nolako poza eban aitak Bilbo'tik eroaten eutsazanean erromantze, ipuinbarri liburuak, eta onein irakurgaiak emoten eutsen biotz-ikara.

Mutillak amabost urte ebazala, Madril'era bialdu eben aita-amak, mutillen izenartze ta gudatokietara bialketen bildurrez. Madril'en Kintana'tar Jose Vicente osabak eukan burnisaltegian beste dendako mutil langilleak lez zereginduz, bizi zan. Asti-une aldietan literatur jakintasuna lortzeko alegiñak egiten ebazan.

Bederatzi urte geroago bere aukerazko literatur jardun atsegiñak dendako zeregin arazokaz burrukatu eben, eta saltokitik aldendu zan. Udaletxeak egunero emoten eutsazan amar errealekin ibilliz beste inguruetan, bere lenengo nobel ipuiñen asmoak lantzen asi zan. Ogetabost urtetik ogetamarrerantz benetako literatur ikastaroa egin eban, gizatalde ikasienakaz artu-emonetan jardunez eta isparringietan idatziz.

1.851'gn urtean «El libro de los cantares» argitaratu eban. Idazti onek entzute aundia emon eutson, ta beingoan izenbako idazle taldetik goimaillako idazlari ospetsu ta dunrundutsuraiño igon eban.

1.853'gnean «La correspondencia de España»ren idazle egin eben. Onelan ta idazlanen laguntzeakin «La Ilustración Española Amzricana»n, «Semanario Pintoresco»n, «Museo Universal»en eta beste Madril ta eskualdeko aldizkarietan, entzungarriz zabalduta, bere omen-izen lilluraldia lortu eban.

Baiña Trueba, berak diñon lez, «arpegia Bizkaia'rantz biurturik» bizi zan beti. Bere Euskalerria'ren gomuta-oroimenak erakarri, erriratzen eban; bere gurari sutsu ta indartsuena Bizkaia'ra etortea zan.

Eta Bizkai'ko Batzar Nagusiak, Gernika'n baturik, Jaurerri'ko kronikari ta artxibozai bera izendatutea, aukeratzea erabagi ebala jakin ebanean, zelan azaldu bere neurribako poza. Alperrik zan aolkatua, esaten eutsenean Madril'etik ez urteteko, bere etorkizun ta izen-omen ospetsua an egozala-ta; pozaren pozez Euskalerri'ra, Bizkaia'ra etorri zan.

Ez zan damutu iñoiz, ez ori! Beraren esatez «1862 urtetik (elduerako urtea) 1.872'ra arte neure bizitzako aldi zoriontsuena izan zan».

Baiña zoritxarrez anai-guda etorren barriro. Ez zedin ixitu, ardura sakona artu ta alegin andiak egin ebazan Trueba'k. Alan da gustiz be 1.870'gn urtean ixitu zan anaiburruka guda zital ikaragarria, Karlista zala-ta-edo salaturik Euskalerri Bizkaia'tik erbestera iges egin bear izan eban Madril'era berriz. Zorionez gudea amaituta, Aldundi Goiena'k Kronikari, artxibo-zain eginbearra lengoratu eutson. Bere aldez, serbitzu lagunketa onugarriak Bizkai'ko Jaurerri'ari egin eutsazan. Bere eginkizunak bete ondoren arduraz, eukan aldi astietan, idazkai, nibel, ipuin liburuak idatzi ta argitzen ebazan eten barik. Ba-zan a gizon zintzo beargillea. «El Noticiero Bilbaino»ren literatur orria irasi ta eutsi eban. Izparringi onetan sort-erriko idazlariek euren idazlanak egiten asten ziran. Onetariko bat Unamuno izango aurki; onen irakasle beintzat Trueba zala ziur dakigu. «La Ylustración Española y Americana»n lankide eban jarraikiro, baita beste aldizkari batzuetan be. Jatorburu jatorriko kondairak egin, irakaspidezko liburuak sortu ta beste ipuin kondaira asko idatzi ebazan. (Jarraitzeko).

LETONA

GUENKALE

Joan dan urtean, Zazpi-kaleetzaz, goigoika ta zear bidez ba'zan be, zertxobait idatzi neutsuen. Gaurkoan gure aspaldiko ta beti barrizturiko Guenkale-Someratzaz mintzatzeko, gogo bero bizi bat etorri jat.

Igali dendari geienak, Erronda'ko kalean gertatu dan lez, joan iakuz Merkabilbao'ra, Basauri'runtz. Orain bai nabaitu oi dan pake zoragarria! A zan bai lengo zaratotsa! Ta zer desakegu bere kale garbiketaz, apainduzaz ta nunnai etxe barru-kanpoko margo aldiak begiztatuz sumatu oi doguzan poz jarioaz ta dana erabarritzeko zaletasunagaz!

Erabarriturik, gaurkoturik benetan daurkiguz gure Guenkalea ez-ezik baita bertako dendari ta biztanleak ere. Ori ta be, arritzekoa deritzat egungo egunean kale ontako euskerazko kutsu bedegarra aldatzeke irautea, (Donosti'ko kale zarretan gabiltzala dirudi) ta bere aspaldi bateko oituretan tinko oraindik jarraitzea. Idaz-lantxo au larregian ez luzatzearren onelako ekandu zar bataz bakarrik mintzatzera noatsue. Ez da eleiztarra ez, baiña kalterik iñori ez egitekotan ezta ganorabakoa ere. Etsai bizienak andragai ta emzateetan ditu, eta zerbait galduaz doanez Iturribide kaleak aurrea artu dautso.

Txurrutalarietzaz diardut, urtean bein Pelota kalean Zeruko Amaren Irudipean, euren urteko baiña egunero zenbaturiko txanponak, Ama Bigiñaren bitartez ta jai polit bat bide dala, Santa Mariña'ko gaixoentzat diru orreik eskeintzen dabezan txurrutalarietzaz. Orrela ez da oitura txarra. Euren artean ez dago gizarte arazorik. Edaritegirik edaritegira doaz arratsaldero, bai jabe ta langille, bai ikasle ta irakasle, baita aberats eta ezeukiak, aldretan alkarturik eguneroko ibillalditxoa egitera. Euren artean besteen lepotik baliatu oi diran betiko kankailluak ere ba-dira. Ta danak alaikiro ta batera, edo aldretan banaturik, amabi egotaldiak, beste edan-toki bakoitxean egin ondoren etxeratu oi dira, zaratarik gabe, baiña ori bai, Errioxa'ko ardao-baltzak berez damotsen alaitasun-poztasunagaz. Ta biaramonean barriro danok lanera bilbotar guztiok ondo irabazita dogun lan-zaletasuna egiztatzera.

Len oartu dodan bezela, kale ontako euskal-zaletasunagaz, beste ainbeste esan desakegu. Guenkale'ko mueta guztiriko saltokietan euskera errikoian berba egin zeinke, alegia. Or dozuz esate baterako jantokiekaz asteko, Zornotzana, Gipuzkoano, Bikandi, Morga ta abar.

Guztiriko oiñetakoetan, Bizkarguena (a zelako denda-barriztea egin dauan!) Abasolo, Mario... Aziak eta ereingarriak Antuñano jaunak oillandatxoak eta txitak be ugari, Bilbo'ko ospetsuena bera da. Otzarak eta erredixak saltzen bikaiñenak: Solaun, Primi Etxea, Manzarbeitia'tar Sabin.

Eunak, miesak eta bestelango soiñeko dotore ta apaiñenetarikoak dituezanak, Gregorio Barandiaran, kale ertzean, ta Cearra batez bere. Bitxi saltokietan ta abar, Kauldi Eguren ta Zuazo, kale asieran. Ta drogategietan, alajaiña! Arana euskaldun porrukatuk danetik dau, margo ta berebillak garbiteko gaietan Bilbo'n onena, onetik dira benetako drogak, ez gaurko gaztediari sartu gura dautsezen droga iltzaille orreik!

Zerrendatxo au ez luzatzearren amaitzera noa. Kale ontaz ba-dakie euskaldun baserritarrak ta bilbotar jatorrak ere. Ori dala-ta, euskaldunez beterik, geien bat, Guenkalea aurkitu oi da. Jarrai bai dan-danok gure jayotzezko, amaren ugatzetik arturiko euskerean nunai ta edonoz mintzatzen, ta Guenkale'ko dendai ezeze beste euskal saltegiei ere erosketaren bidez eskua emoten. Danok danontzako izan bearra dogu. Au da benetako gizarte arazoa. Ta euskaldunentzat euskal-kutsudun zeretzaz maitamintzea. Olan jarraitzekotan Guenkalea, Bilbo guztiko legamin-orantza lez izango da. Ea lortzen dogun!

ARREGI'TAR JOSU

LANDARAK

Azi barri bage bizia iltera doa. Soloak landu ezik, lurrak sasi. Ori da zoritxarra! Baiña gizonak lanean ba-diardu. Ilterik ez dau nai. Aurrerapidearen bidetik doa. Gizona, izan bere, orretarako jaioa da. Jaiotza zoragarria, bakoitzak norbere bizi-min, etorkizun ta eginbearrari erantzuten ba'dakigu. Ta edertze onek ez dauka mugarik. Geroago ta geiago jakin giñaike, geroago ta maitagarriago izan gindezke.

Izadia, lur gaiñean, artzen dau gizonak berari dagokion osotasuna. Guk euskal izadian osotuko dogu gure izatea. Berezkotasun pozgarriz, ementxe artu gendun geugan daroagun nortasun berezia. Ederra ta atsegiña da guretzat, baiña ederrago ta atsegiñago izango gure jakituri ta borondate onez, bide zuzena galdu barik, obeto tajututen alegintzen ba'gara.

Lenengo, zugatz landarak gogoratuko doguz. Ta bai eder dirala landara barriak mendian. Ugezaba, aldia daukanean, ikustera doa. Gizonaren bizitza-lagungarri diranez, arduratu egin ber dau eurekaz. Aundiagoak eta txikiagoak, lodiagoak eta meiagoak, edorragoak eta mearragoak agiri dira. Onek be euren ekaitzak ditue, aize zakarrak, arri ekaitzak eta abar. Biziak asteko, ta gero, edertzeko langille laguntzailleak bear ditu arrioen aurka, ta baita, eguzkiaren laguntasuna aize garbi ta eurien laguntasunagaz.

Lurra mamintsua izan ezkero, berez, ta eguraldi aldetik laguntasuna ba'dau, landaren sustraiak, gogotsu, egongo dira ama lurreko bizia zurgatzen, baiña aukerea ta bizigiroa nai ditue. Eurek egingo daben bearretik at, aurrezaz, lur mamiña ta giroa bear ditue, ta lurrean dagozen bitartean egurats gaikiak laguntzen ez ba'dautsee, edertasunik ez da izango, ta aren bizia, errezki murriztuko da.

Mendiko zugatzak, garbi dirauskue, aurrera egingo ba'da, lurraren barrutik ta baita azaletik be, aukeramen egokia bearrezkoa dala. Landara barri, gazte ta indartsuak dirudiela-ta, beste barik, ezin ezer egin dabe. Amaren sabeletik janaria artu bear dabe.

Lurrean ba-dira beste landara batzuk askoz ederragoak. Ezin bardindu leitekez lur utsa ta gizak adimendun, maitasundun ta askatasunduna, bardintzekoak ez dira-ta. Emengo izakirik bikaiñena gizona dogu. Baiña atan be, lagun gazteak dirdai barria daroa beti, bere izatean. Landara onek geroaren itxaropena direlako, poza zabaltzen dabe errien barruetan.

Zelan azi ta edertuko dira gizadiko landara barri oneik? Bizia kateia da. Ta kateia ustaiekaz osotuten da. Bizia sortuagaz batera, ustaiak alkarri ezarten asi ziran. Ta ordutik ona, millak urteetako kateia daukagu, gizonaren egiteekaz osotua.

Bizia bat, egiteak asko, ta aurrerapidea, gaur arteraiño eldu dana ta gure begiekaz dakusguna. Aurrerago egon bear genduala, ta bakoitza bere tokian poz geiagogaz, zer esanik ez dago. Gizonen maltzurkeriak direla-ta, erriak eta erreiñuak negarpean bizi dira. Ainbeste urteetako gaiztakeriak ondoren samiñak ekarri ditue, ta gori gori, itzi dauskue euren ostea.

Orain, bearra egin daben gaztediari begira nago. Bizitzako kateiari oratuta doa gaztedi zati ederra bearra egiñaz, ta astindu aldi onetan aurrerapide bizi ta jatorra bizitzen emon naiean. Beste batzuk, lengo guztiagaz asarretuta dagozela dirudie, ta eurak direla bizitzaren azi barria uste dabe. Lengo utsak ta baita norbere ipuintsuak be taju orretara ekarri ete zaitue...?

Egiz, jokera arbuiagarriak ikusi ditugu. Baiña ainbeste izerdi ta odol emon dabenak be, ezin baztertu gengikez. Aurretik iñor ta ezer gabeko bizirik ez dago. Biziaren lorratzak, biziak iraun daben ta dirauan aldian, sortzen dira.

SOLZABAL'TAR PAULIN

AGUR

III URTEA
50 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - DAGONILLA - 12

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Gorrotoa?

Gizona ikusi eziña, berari kalte egiteko gurari bizia: orixe da gorrotoa. Beti eta gaur batez be, ain zabal dabillen egikera tamalgarria ta ainbeste eriotza ta kalte gizonen artean sorrerazo ditun griña zikiña.

Nondik sortzen ete da gizonaren biotzean gaiztakerirako zuster bildurgarri au?

Berezko jokera bat dogu, geure burua eta geure ondasunak zaintzeko bide bat. Ain berezkoa, gorputzak eskatzen dauana, pistietan be aurkitzen da. Geuretzako edo geure gauzentzako kaltegarri izan dana, gaur doguna, edo gero izango doguna gorrotatzen dogu eta gizakia ba'da, arerio lez agertzen jaku.

Esaterako: bizia edo gorputzaren osotasuna kendu gura dauskuna, geure gogoarentzat eta eretxientzat kaltegarri dana, gure izan ona loitu guraz dabillena, gure senideentzat edo adiskideentzat kaltegarri dana, gure ondasunak galazoten dauskuzana...

* * *

Buruz laburrak garalako edo gauzak diran lez agertu ez jakuzalako, gure gorrotoa sarritan zio bakoa izaten da.

Batzutan uste onez egin dauskuena gogo txarrez eginda dagola uste izaten dogu. Edo geuk uste dogunagandik etorritakoa ez da izaten kaltea, beste bategandik baiño. Edo geuk nai ez dogula kalteren batzuk egiten doguz. Edo mezedea kaltetzat artzen dogu... Zenbat eratara sortu ladiken gure barruan zio bako gorrotoa!

Gorroto onen ondorenak negargarrienak izaten dira, errubakoa gorroto izan eta berari, bear ba'da, erruduna dalakoan ordea ezarten dautsagu ta. Gero egia jakiten dogunean gauzak ez dabe urten-biderik izaten.

* * *

Baiña izan ledikez ziodun gorrotoak be. Biotz txarrez eta orretarako gurari biziz benetako kalteak egin dauskuezalako. Edo etxekoen bat il, edo urteak espetxean egonazo, edo ainbeste izarditz lortuta bizitzarako bearrezko doguzan ondasunak galazo...

Eta ez gizon bakarren artean bakarrik, aberrien eta laterrien artean be olako arazoak izaten dira. Ortik sortzen dira, ain zuzen be, gudak eta ordeak emoteak.

Bildurgarriak, benetan kaltegilleak, eta bildurgarria gorrotoa bera gizonen artean! Pistien gorrotoa baiño askoz bildurgarriagoa da gizonen eta gizarteen arteko gorrotoa.

* * *

Gorrotoa kentzeko bideak artu bear doguz ba guztiok. Edo, bardin dana, bake-egilleak izan bear gara.

Zein da bakearen salneurria?

Gorrotoa zio bakoa danean, gauzak argitzea da naikoa. Besterik ez da bear. Eta argitasun orrek gorrotoa ezestuko dau eguzki beroak leia urtuten dauan lez.


Gatxagoa da bakea gorrotorako benetako zioa dagonean. Orduan argitasunak ez dau kentzen gorrotoa, geitu egiten dau. Zio orreik kentzeko kalte-egilleak zuzentasunak eskatzen dauana egiteko gertu egon bear dau eta kalte artzailleak be, al dan neurrian, parkatzeko gertu, kalte guztien ordaiña eskatzea bere eskubidea izan arren. Orrez gaiñera iraiñaren parkapena eskatu bear da eta irainduaren aldetik parkatzeko biotz zabala izan.

Eta zer kaltegiña damutzen ez ba'da eta ordaintzeko ezelako gogorik erakusten ez ba'dau?

Itzez eta egitez berari ulertuazoten alegindu bear gara. Ori lortzen ez ba' dogu, aurreratzean kalte geiago etorri ez dakigun bideak artu bear doguz. Baiña iñoz be ez gorrotorik edo ordea emoteko gogorik. Bere neurrira elduko gara onelan jokatu ezik. Bere saltzailleari «adiskide» esan eutsanaren antzekoak izan bear gara.

Gorrotorik ez. Zuzentasuna ta maitasuna bai.

AGUR





OLITE, eguzki pean kerizpe!

ALKARREN MAITASUNA

Gizartean maitasunik ez dagoala, ainbat bider entzun dogu. Jaungoikoari eskerrak, ori ez dala egie esan geinke, egun batzuk dirala zer jazo zan ikusirik.

Egun asko ez dala, Iruña'n izan giñan Usansolo'ko gazte mordo bategaz, Permin donearen egunak be ba-zirala-ta.

Asazku ederra artu ondoren, bai jantzan egiñaz Iruñako «Peña» arein artean sartuta, baita beti lez, gure Amaia an zalako, bere auspo-soiñu alaiagaz, ta orrein eztarriak erakutsiaz, euskal abesti zar eta barriak abestuaz, Aralar'ko Mikel donearen ingurura eldu giñan bazkaria egitera, gure Erria'ren zaindariari agur bat egin ondoren.

Tamalez, egun laiñotsua izan, ta txadonaren aterpean dagoan ardandegi antzeko batera sartu giñan gure janaria egiteko asmoan. Eta tamalez diñot, ez giñalako on-artuak izan. Ardaoa ta beste edozein edari saldu bai, baiña alperrik zan edontzi bat eskatzea.

«Bakotxaren etxean norbera ugazaba» esango daustazue, baiña ardandegi bat zabaldu ezkero, ez da apur bat danontzat? Bai saltzalearentzat, ta erosleena?

Abesti batzuk, guztiz garbiak gure gazteen ezpaiñetan, txoferrari itxaroten gengozala, ta auxe be galazo, eleizearen aterpean gengozan atxakiaz. Eta zer esan geinke, otzagaz leitute egoan gazte taldeari txistu apur bat jotea aukeratu jakonean, txistua be aotik kendu egin eutsenean txistulariari?

Ez neban iñoiz be uste izango onela artuak izango giñala geure Erri barruan!

Baiña, goiazan lerro onein gai izan danera: Egilaz'ko jentil-arriari ikustaldi bat eginda gero, Gazteiz'era jo genduan. Askok, lenengo ikustaldia egiten eben lez, ordu biko asazkue emon jaken daneri, baiña urten orduagaz danok ondo arduratzekotan.

Eldu zan ordu ori, baiña gazte baten utsa. Beti dagoala olako zerbait eta —naizta joan-etorri guztian danok zuzen jagon izan orduak— lasai artu genduan lenengotan. Baiña orduak aurrera, ta mutillaren barririk ez.

Gurasoak artega, ta estutasun ori, laster, talde osoaren biotzean. Batzuk emendik, beste batzuk andik, Gazteiz guztian taldea urduri ta artega. Aren gurasoak, egun batzuk geroago esaten eben lez, eurak taxis bat artun eta toki guztietan itaunduten eben, ta erantzun bardiña: «Gazte batzuk be izan dira galdera orixe egiten, baiña emen ez dago». Ez komisarietan, ez gaixo-tokietan jakien ezer.

Gazte geienak izerditan, alegin guztiak eginda gero, berebillera, ta danak esku-utsik.. Zentzun geienekoen ustez, bere burua galduta ikusirik ezezagun tokian, taxis bat artuko ebala ta etxera joan zala. Ta, bat orren utsean etxerako bidea artu gendun.

Baiña zelako etorrerea! Danok ixillik, askok negar malkoak begietan. A samingarria! Usansolo'ra eldu ta, gazte ori taxis baten etorrita etxean egoala zabaldu zanean, a zan poztasuna talde osoan.

Iñork ez eukan itz txar bat berarentzat, poz aundi bat baiño danon biotzetan. Ba-dago bai oraindik, maitasuna gure artean.

ATXUTEGI'TAR JULENE

A. Labayen

IDASLEA TA EUSKALTZAIÑA

Baiña, nor da Labayen? Itandu eustan oraintzu nere lagun batek, aren azken idaztitxoa erakutsi neutzanean. Benetan da mingorra gure arteko ezjakintasuna. Azken urte oneitan, euskerea ondo ikasi barik goi mailletara igon diranen izenak sarri entzuten dira; iru edo lau zirriborro bapere lotsa barik idazten ausartu diranen izenak... baiña Labayen batenik ez dabe entzun, batezbe Bizkai'ko euskeltzale askok.

Ta Labayen dozue, irakurleak, euskera arloan gizonik-eta ospe aundienetariko bat. Euskaltzaiñetan osokoa; euskerea zabaltzen eta lantzen gitxi bezelako langillea; bere errizaletasunak eraginda, bere bizitza guztian, euskeraren alde makiña bat ekiñaldi egindakoa... ta ez dozu atzokoa. Euskerazko antzerki ederrak idatzi ditu: Ostegun gizena, Mateo Txistu, Irunxeme, Jostuna, Jokua ez da errenta, Malentxo alargun, California ku-ku!... ta beste ainbeste ta geiago.

Orain dirala 18 urte, Arantzazu'n ezagutu neban, naizta beragaz itz egiteko aukera larregirik izan ez. Andik urte pare batera, Mungia'n antzerki talde bat sortu bear gendula-ta, umeentzako egoki izango zan antzerki bat eskatu geuntson. Irugarren egunera, bere «Ostegun gizena» izenekoa artu gendun, bizkaieraz jartzeko baimenagaz ta guzti. Abeletxe' k bizkaieratu ondoren, gaur gizon jator diran orduko mungiar umeak ikasi ta antzeztu eben. Alboko errietan eta Bilbo'ko Arriaga'n txalo ots galantak entzun genduzan; aurrera jarraitzeko ongarri izan ziran txaloak.

Arrezkero, sakonago ezagutu al izan dot Labayen jauna, bere jakituri ta apaltasunagaz jabetuz. Baiña... gure gizon ospetsu ta errizaleen izenak ixiltzea amaitu da. Naiko ganorabako zarata atera dabe urte oneitan sasi-jakintsu agertzen diran besteok. Orraintzu, «kulturea»ren izenean zabaldu dan erderazko orri mordoan, ez dator idazleen artean Labayen'enik. Zergaitik? Argi dago: gazteen ta ez ain gazteen artean egizko idazle ta errizaleen izenak estaltzeko; guzurrezko alkar-asarretze ta eztabaidetan dabiltzan beste orren izeneri zabalkundea egiñaz, alkar goraldu ta zaratea egiteko. Baiña ez gara gaurkoak, mutillak!

Lengo ariari oratuz, oraingo onetan, Labayen'en azken liburutxoari buruz zeozer esatera natorkizue: «Sasi-Batasuna», mala letra y peor espíritu de una pseudo-unificación», sarrerako izenpuruagaz idatzi dauanari buruz. Erderaz egin du, berak azkenean diñoan lez, erderaz dabiltza Villasnate ta beste h-zale guztiak-eta.

Gure burrukearen «barrua» aztertu al izan ez dabenak lo-zorroan jartzeko, beste orrek erderara joten izan dabe. Zergaitik ez beste batzuk beste orrenbeste lo dagozanak itxartzeko? Egi biribillak diñoz Labayen'ek bere liburutxuan, aspaldian agertu bear ziranak. Ez du izkanbilla txikia sortuko; olako arrikadak mingarriak izaten dira-ta. Baiña egia mingorra izaten ba'da be, azaldu bear da, naizta satorrak eta «lurrun» pekoak goragoraka jarri.

Irakurle, errizaletasunaren etsaiak diran sasi-euskeltzaleen azpi-jokoa ta maltzurkeria ezagutu nai ba'dozuz, irakurri egizu Labayen'en idaztitxo ori. Or agertzen diranak ez dira barriak izan guretzat; aspaldiko urteetan «saltsan» sartuta gagozanentzat ezagunak ziran; ea baiña ori irakurri ondoren zugaitz puntan, erdi-eldurik dagoan pikuren bat be jausten dan... ezin jakin.

Erriak, batasuna nai du; guk bere bai, ta batasun ori izan bedi argiaren igalia, ta ez sasiartekoa. Egizko batasuna nai dogu, ez alakoa ala bestelakoa, baiña izen dotore orrekin estaldurik iñoiz sartu danik-eta nastakeririk kaltegarrienera etorriak gara.

Eldu da ba ordua, gauzak eta izakiak, bakoitza bere izenakin eta margoakin agertzeko. Satorrak euren zuloetatik ateratzeko... ta ori egiten asi da, giza-legeak gorderik, gogor, mingor, baiña egiagaz baliaturik gure adiskide dan Labayen jauna.

Zorionak lagun, ez zaitugu bakarrik itxiko, margokerizko errizale-izunen gaillur bat baiño geiago moztu bear dogu-ta.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

MITXELENA'REN IRITZI BATZUK II

Itzak ez ditezke euskaldi batetik bestera nola-nai ekar-arazi; Olabide'k-eta egin oi zutenez. Amets-euskaldunentzat berdin da guztia; baiña erri-euskera ez da amets-euskaldunen izkuntza.

15.—Itzek, jakiña da, badute beste zerbait, adimenez nolazpait besarka daitekean adieraz gaiñera, adimenak ikusten ezpadu ere, biotzak uki dezakeana: beren giroa, usaiña, lurriña eta sentimen kutsua. Orrexek, gauza ezerez orrek, gidatzen du idazle eta iztun trebea itzak autatzean; eta orixe da saio-izkuntza batean —baiña ez benetako izkuntzan— antolatzaillearen erabaki utsez bazter eta deusezta daitekeana. (EGAN, 1959, 1-4).

16.—Itzak berak, izkuntza baten zatirik aldakorrenak eta askatuenak eztira ezer iztegi osoaren egitura eta sistemaz kanpora. Elkarreriko arremanak dirala bide bakarrik dute zeiñek bere adiera. Eta itz batek, ingurukoak geitzen, gutxitzen naiz aldatzen bazaizkio, ezin leengoan iraun. (EGAN, 1959, 1-4).

17.—Nabarmenegiak dira sail onetan obe bearrez egin diren utsak. Menderen mende aotan erabilliak gozoz eta zaporez bete zituen itzak baztertu eta arburatu genituen, orien lekuan ez kolorerik, ez usaiñik etzuten berri keriak ipintzen genituala... Beste edozeiñek egiten zuena bere izkuntzan, egingo genduen guk ere gurean, baiña ez besteak bezala: guk ori berbera egin genezakean ankak mozturik, besoak loturik, baita burua txapelarekin batean zoko batera utzirik ere. (EGAN, 1960, 3-6).

18.—Amets-euskaldunek zernai gauza entzun dezakete, eta eztute iñoiz txintik aterako. (EGAN, 1959, 1-4).

19.—«Euskalduna» Orixeren poema erraza eztela dio norbaitek, ezta osoro errikoia ere. Neroni ere erraza eztelakoan nago, baiña ezta erraza, baitipat erri kutsua duen aldetik. Erri bertsoak eztitu bear bezala ulertuko —Xenpelar lekuko— euskaldun garbia eztenak; diotenak adiña ardura baitu ixilik uzten dutenak. (EGAN, 1961, 4-6).

Ezta egia alako biurria zanik lengo euskera idatzia; poliki-asko jarraitzen ziran euskalki bakoitzaren legeak; eta obe litzake bide ura guk aintzakotzat artzea. Euskera ezta sistema bakarra; diasistema baizik.

20.—Egia da izkuntza bat sistema dala. Sistema horren zatiak edo osagarriak ezdira deus sistemaz kanpora. Aitortu bearrean gara, mamira bagoaz, euskara ez dela oraingoz sistema bat, diasistema bat baizik; eta diasistema horren itxura batera heldu behar dugula, gero mamia batuko ba-dugu. (EUSKERA, 1968).

21.—Irurogeiren bat urte daramazkigu batasun bidean; eta badirudi, fruituei bagagozkio, batasun ori uxatzen aritu garela egiñaalean, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian, bai orain Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan. Euskalkiak naasi, bai, egin ditugu, Pasaiako ardogilleak kolore bateko eta besteko isurkariak naasten omen dituzten eran... Baiña naastea ezta batzea, eta ezta beiñere izango. (EGAN, 1960, 3-6).

22.—Iskribidu-euskeraren euskera idatziaren oiturak eta usorioak ongi finkatuak eta mugatuak zeuden punturik geienetan, euskalki bakoitzaren barrenean beintzat; eta aski jokabide argia dugu aiei lotzea eta obidetzea. (EGAN, 1960, 3-6).

23.—*Nuan? Nuban? Nuen? Nuin? Niin? Noon? Nuun? Nun?*... Ezta egia orrelako anarkiarik zegoenik Gipuzkoako literaturan. (EGAN, 1960, 3-6).

Idazleak, irakurleari bear dio ulertzen lagundu, eta ez bidea sasiz eta arantzez laztu. Eragozgarriak kendu alegiñean! Idazkeraren oiturak eztira izaten arrazoi-gabekoak.

24.—Idazleak baditu eskubideak, nork uka; eginbearrak ere bai, ordea... Alaz guztiz ere, irakurlea da nagusi, iñor izatekotan, eta idazlea zerbitzari. (EGAN, 1957, 1-2).

25.—Zer begiramen zio dio idazleak irakurleari? Leenengoa, aalik argien egitea. Izkuntzan aurrenik. Iztegi batetik itz zaar, zokoratu eta bakanenak bildu eta parrastaka ereitea, gauza atsegiña izan daiteke, ez orratik irakurlearentzat. Irakurlea arrituko dugulakoan bagabiltza ere, eztugu aspertu besterik egiten. «Ulerretan eztan itza, prestu ez» zioten Iruñe-ko Esaerek. Eta orixe da idazleak irakurleari dion leen zorra. (EGAN, 1957, 1-2).

26.—Irakurleari etzaio biderik geiegi zabaldu bear; baiña arantzaz eta sasiz irakurtzeak ere eztirudi egoki. (EGAN, 1959, 1-4).

27.—Gaurko eta onerako egokiro moldatu du Lekuona'tar Inmanuel apaiz jaunak Axular'en liburua, guretzat beaztopogarri izan zitezkean zenbait xeetasun besterik ukitu gabe (H'rik geienak kendu zituen Lekuona'k 1954'gngo edizioan). (EGAN, 1954, 2-4).

28.—*Abèrên, gôra, zapaltzaillên*... Eztira berrikeri auek Olabidek asmatuak, ezta Olabidek bakarrik erabilliak; berrikeriak dira orratik: bearrik gabe, eta batsunaren eta euskal irakurlearen kaltean sorturikako era berriak. (EGAN, 1959, 1-4).

29.—*Y* letra *(yakin, yaun...)* ezta erabiltzen asi batasunerako; nagusi ageri zen batasuna apurtzeko baizik. (EGAN, 1959, 1-4).

30.—Gutxitan izaten dira (idazkerako) oitura arrazoizko oiñarririk gabeak. (EGAN, 1959, 1-4).

31.—Lehengo harrietan beretan ez dezagun behin eta berriro oztopo egin. (Mitxelenaren idazlan hautatuak, 1972; Azken ordukoak).

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Nere Bordatxotik

Igaro-berriak ditugu aurtengo «San Fermiñak».

Iruña zaarra festa-aro betean zegoelarik, bertso koxkor batzuk moldatu genituen.

Aurtengoak igaro badira ere, urrengo urtetarako zer galdurik eztaukate, noski.

Festazalea danak
festa nai du egin,
biotzez alai eta
anketatik arin.
Gogozko santua du
jendeak San Fermin,
Iruña aldean ezta
izango atsegin.

Sasoia gaiñezka ta
ezin iñun gorde,
San Fermiñak dira-ta
etxetikan alde.
Askok aurkituko du
zer-nai libertade,
santuarekin asko
gogoratu gabe.

Bero diran odolak
ezin errenditu,
beti ala izan da
eta ez arritu.
Gazteak zorakeri
asko maite ditu,
zarrok obea degu
etxean gelditu.

Jan-edan egin baiña
neurritxo bat artu,
familian eztedin
naigaberik sortu;
sano nai badazute
ortik etxeratu,
zezen adarretara
etzaitezte sartu.

Zein da etxekoa ta
zein da kanpotarra?
zein ote da emea,
zein ote da arra?
Garbitasuna nunbait
askorentzat txarra,
bada gaur bazterretan
txima ta bizarra.

Moda omen da eta
bai modari eman,
oraingo naspide au
nik eztakit zer dan;
euskaldun, frantzes, ingles,
holandes, aleman,
zoroenak zein geran
gaur zeiñek antzeman?

Kristau itxurik gabe
emengo ta ango,
oien alde botorik
nik eztet emango.
Nabarmenkeri alde
ez izan egundo,
itxuran jazten danak
ematen du ondo.

Ez nuke iraungo nik
zoramen erdian,
festa ona da baiña
bear dan neurrian.
Naiago nuke askoz
geure alderdian,
artzai artean lasai
Urbia mendian.

EIZMENDI'TAR IÑAKI
«BASARRI»

ONA
ta
RAM
EZNEAK
ZUK
ONARTZEKOAK
DITUZU

GAZTE

BIZITZA BATERAKO

(Amaika lege)

LENENGOA

Al ba-da, dirudunen etxean jaiotzeko alegiñak egin. Au da, aita, ol edo pabrika baten nagusia izan dedin; orretaz gaiñera, beste sei ol'en accionista. Suiza'ko banku-etxeekin artuemana duena. Bi beribillen jabe; beribill bat, lantokirako eraibiltzen duena eta bestea igandetan jolasteko.

BIGARRENA

«Seiscientos» bat bakarrik duenakin ez ibilli. Beste lagun batzuk arkitu bear dituzu; beribill garestienakin ibiltzen diren oietakoak. Beti apari onak egin eta al dan ondoen jolasten alegindu. Gero, eizean eta arrantzan jardunteko, azken modako tresnak erabilli. Ostatu edo tabernetan ez sartu; baizik «Club» edo «cafeterietan»; ardo beltza eskatu bearrean, Dyc, txokolatea, ura limoiakin, eta itxura egiteagaitik edo, eskatu baita ere gela kozkor bat.

IRUGARRENA

Goizetan amabitatik ordubiak bitarteraiño, Avenidan atzera eta aurrera ibilli, gutxienez amabi aldiz. Noizik bein neskatillen belaun koskorrak leku berean segitzen duten errepeaturik.

LAUGARRENA

Zure bizitzan, zazpi lantegitan ibillia zera. Zazpi lantegitan «desfalko» lodi xamarra egin; benetan sonatua, eta segituan Onassis'en alabakin ezkondu.

BOSTGARRENA

Jendeak ez du oraindik itzik egin zuregaitik. Zure emazteari koskillak egiteko esan; ez ba-dizu kaso egiten eskatu berealaxe «diborzioa». Hola, semana eta lecturas; en zure izena asiko da azaltzen.

SEIGARRENA

Berriz mutil zar gelditu zera. Orain programa on bat egin. Illean bein ezkondu, beraz urtean amabi aldiz. Asarretze bakoitzean zure andre zanari dirua eskatu, ez zaitulako bear bezela zaindu. Orrela illeroko soldata seguru daukazu.

ZAZPIGARRENA

Irurogei milloien jabe egin zera gutxi gorabera. Erri atzeratu batera, ibillaldi bat egin. Bertan amar gizon gizakoejin, argazki bat atera; argazkia atera ondoren, bost duro eman bakoitzari. Urrengo egunean izparringietako aurreneko orrian azalduko zera.

ZORTZIGARRENA

Ainbeste diruekin zer egin ez dakizula nekaturik zaude. Oporketa batzuk merezi dituzu. Zakur tiki bat erosi, Hawai aldera irten bearrean arkitzen zera.

BETZIGARRENA

Naiz belarri txarra eduki, abots zakarra ta estilo traketza izan, lau abesti osatu eta diska berri bat argitaratu. Ez beldurrik izan, jendeak erosiko du, orrela, zure kapitala aunditzen dijoa.

AMARGARRENA

Zekuletan ez aspertu, jarrai aurrera, bizitza ontan danetik egin ba'dezu, oraindik falta zaizu bestez zerbait egitea. Lau anken gaiñean jarri eta belarra jan. Berriz ere zuregaitik itz egingo da-ta.

AMAIKAGARRENA

Illea luzatzen utzi (buru soilla ba'zera, jantzi txapela), bizarra eta bigotea ere nabarmen ageri direla utzi; gitarra erosi eta enparantza zabalean, erdi-erdian, egin bulla, «Ez nago konforme».

Amaika lege abek betetzen dituzula, zure bizitza; benetan latza, aspergarria, tristea eta oso merkea izango da.

RAMON ZAPIRAIN

KOREA

Pozarren pozez ezagutu dau gizarteak Korea aldetik etorri jakun izparra. Korea bien ber-alkartasunaren bidean erabagiriko gentza edo pakealdia. Bai poztu be, iñok aurretik susmatu ezebalako. Ber-alkartasunaren bide orreri urrengo oiñarriakaz asi jakoz:

1) Ber-alkartasuna Erbestiek esku-artuteke egin bear da.

2) Gentza edo pakebidez, batak besteari gudakatu barik be egin bear da.

3) Korea erri bat dalako, aberriaren batasun aundiak jaurbide ta asmakeraen aldiek eta guztiek goitutu bear dauz.

Ni umea nintzala, Korea danen ao-miñean ibilli zan, lurralde aretan egin zan gudeagaitik. Aldi aretan be, Euskalerrian, ona lan-egitera etorri oi ziran kanpotarrei izen ori esaten asi jakezan, ta esakun zarpail au oraintsu arte entzun izan dogu emetik.

50'garrenetako urteetan, egun oneitako Bietnam, Korea izan zan, orduan baiña, II Guda Orokorraren benetako garaillea zan USA'k (garaille bakarra, bere etxean gudearen ondorioek jasan ez ebazalako: Aleutienas eta Hawai ugarteek atarata; USA, au da, legorraldea, kalte barik geratu zan) irudi begikoa ta bikaiña ludi osoan, ta etziran gaur dakusiguzan ostetasun edo protestak.

Orduan, «american way of life»k sapa aundia euki eban, eta Europa'ko gudarako propagandaz inguratuta (Plan Marshall-eta), andra gizon askok ziñetsi egin eben USA'ren Demokrazia: Korea'n guda asirik, USA errezuma nagusiaren aundinaikeria gitxik oartu eben, ta orrelan USA'k aldez euki al-izan zituan «azkea» deritxon munduaren uste osoak.

Eta zergaitik sortu zan gudea? Edestiari begiratu daiogun. Korea, Txina ondoan dago ta arekin artuemonetan sarri ibilli zan, baiña mende onetan, Japón'ek, bere zabalaldian, babespean artu eban; azkenengo gudea bukaturik, errusitarrek eta usatarrek erdibitu eben Korea, bertokoen naiek eta eskubideek aintzakotzat artuteke, geroago ospe itzala ta ituna gozatu eban 38'garren tartidea muga zalarik.

Laster ipiñi ta sendotu zituzten alde bakotxean «jaurbide lagunek», alkartasunerako bidea galazoaz eta itxiaz. 1948'gnean «azkatu» ziran Korea alde biek, ta 1950'gnean, USA ta sobietarrek guda otzean iñarduela, iparraldekoek egoaldekoena eraso eben.

Pakea-edo egin guraz, UNO sartu zan auzi onetan. Eztabaidea baiño ezerbe etzan jazoko, oi-dan lez, baiña alako baten, sobietar ordezkaritzak batzarra utzi eban, ta utsune au ostiatuaz, USA'k bultza eragin eutson UNO'ri egoaldekoei laguntza emoteko. Augaitik, UNO'k gudariek bialtzea erabagi bear izan eban, eta orduan bai galdu gentzarako itxaropen izpiek!

Korea'n, ludialde bietako errezuma nagusien andinaiek aurrez-aurre jo eben. Eta izkillu ikaragarriek eskuratu barriek eukezala, USA'k bere almenaren mugea ezagutu bear izan eban: politika arloan, ezagutze orrek Erruzia'gaz orekan egotera eroan eban.

Gudaren aldetik, gorabera oargarriak izan ziran. Asieran, iparraldekoek arin-arin lortu eben, egoaldekoek eta usatarrak Fusan inguruko zorro baten sartzea, ta Mac Arthur'en erasoaldia jazo arte, alaxek izan zan: gudalpuru onek, Japon'en aurkako gudatean Itxaso Barean ikasitakoa barriztuaz, ta beti lez USA'tik etorkion eskuartea oparo erabilliaz, legorrez eta itxasaldez jo eban, ta amen baten lengo egoerea itzulietara gelditu zan. Arerioa jazarriaz, iparraldera igaro, ta antxe bertan bereala amaituko eban gudea, ta beragaz Korea'ko laterri komunistea, Txina'k jardetsi ezpa'leu, bere gudaroste ugaria bialiaz: onetan agiri izan zan lenengoz, gaur munduan irugarrena dan Txina.

Erasoaldi onegaz, 38'gn tartidea biurtu zan gudategi. Egitada barriaren aurrean, Mc Arthur'ek kizizko izkilluek erabilli gura izan ebazan, Txina bertan Korear'en mugaldian sakailtzeko, baiña Washington'ek ezetz biribil batega erantzun eutson; Mc Arthur etzan bat etorri ta azkenean buruzagitza galdu eban, Washington'egaz izandako eztabaida garratzakaitik.

Apurka apurka, gudea baretu zan: gudaurkak ez eben gurenda andirik jaritxi, ta 38'garrenean tinko-tinko lotu zan gudategia. Guda osoak elpuru mugatuek eukazala, gudalpuruak erabagitzeko adiuntza galdu eben, ta politikoek eurenganatu. Andik laister, Eisenhower lendakarigai zala, pakea itzemon ebanean lendakaritzarako esandakoetan, UNO'koek pakea egiteko bidea zabalik agertu zan.

1953'gnean eldu zan gentza; dana, guda sortu baiño len lez —edo txarrago— loturik: bi milloi gizon il edo zauritu ziran; txinoek, koreatarrek, usatarrek, eta onen aldekoek (Bretaña Aundia, Frantzia, Australia, Zelanda Barria, Turkia, Grezia ta beste aberri batzuen gudariek) burrukan egin eben.

ARRIORTUA'TAR ANDER

Martín Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

IKASTOLA

Euskal-ikastoletan baiño, beste ikastetxetan irakaskintzan, aur geiago dabill: orregatik ikastetxe oietako zuzendariei deadar bat egiten diegu. Euskera irakatsi!

Ikastetxe oietan euskerari ta euskal-jakintzari tokirik ez diete ematen: ikastetxeak, euskerari begira, beste jokabide bat artu bearra dauka, ta batez ere, erlijioso-ikastetxetatik asita; bestela enziklika ta O. N. U.'ren erakutsi ta aolkoak, alperrik ditugu.

Ikastetxe oietan euskaldun aurrak, nai ta ez irakaskintzak bi izkuntzetara egin bear ditu: euskaldun-aurra, era ontako pedagojia aberatsena dalarik, euskararen jabe egingo da.

Gure artean euskera gordeta edukitzeak ezer gutxi balio du: erabilli! mintzatu! aurrerapen guziak eskeiñi! ori da, ikastetxe izentatu oien, egin bearra. Gure erriaren aurrean, erantzunkizun latza, noski.

OSARTZU

CAJA DE AHORROS VIZCAINA

17 Etxe-orde Uri-nagusian - 75 Bizkai'ko eskualdean

BIZKAI'KO AURREZKI KUTXEAK, naiz Bilbo'n bertan edo gure eskualde osoan, erri-ongintza eta jakintzazko egiketa zabalenak betetzen diardu, eta osagarrietan be garrantzi ta eragin aundienetarikoak.

Beti dozu zeure inguruan gure langelaren bat.

Etxe-ordea Durango'n	**Etxe-nagusia**
Ezkurdi zugaztian, z/b.	**Plaza España**
81-04-45 Urrutizkiña	**24-36-00 Urrutizkiña**
DURANGO	**BILBAO**

KONTU KONTARI

«Uxola» ta «Kamiñazpi» baiño itsusiagoa dala «Basa-jaun», nork esan dau?

Nik ez nebala esan alakorik, azaldu bearrean naz. Au ez dot esaten bildurrez, egia dalako baiño, bildur izateko dan arren Basa-Jaun batekin asarratzea.

Ez dot uste baiña, asarratzeko arrizkorik dagonik.

Belarri biak moztuko dautsodazala esan ondoren, besarkada maitekorra bialtzen daustan Basa-Jaunaren aurrean ez naz dardakadan jarriko. Bestekalde, bat baiño geiago izango dira bekaitzez, !enbidiz! lotuko diranak. Izan be, Basa-Jaun baten besarkada maitekorra ez daike edozeñek jaso; askozaz bikañagoa, andiagoa, kementsuagoa baita. Basa-Jaun baten besarkada! Artik ori ogi-gañean! Zeer?... zu be bekaitzez. irakurle? Ez izan bekaitzik. Gure Basa-Jaun onen besarkada artzeko eretirik izaten badozu, euskel baitan zoriontsu izango zara.

Gaur, ni, obispua banitz, induljentzia plenaria bialduko neuskio berorri, bialduko neuskitzu zuri, bialduko neuskik iri, gure bi lagun barre-zaleen bitartez, zerupean gorderik. Zerupeok, aspaldiko urtetan begikotasuna zerbait galdu daroen arren. Ta ez gure erruz.

* * *

Andra-gizonen artean:

—Ezkondu aurrean —diñotso emazteak—, itz-emon zeustan ez zenduala geiago zurrutik egingo, ta beste gizon bat izango ziñala.

—Egia da, baiña beste gizon onek, lengoak baiño maiteago dau zurruta.

ABELETXE

"ETORKI" BOLIBIA'N

«Bolivia'ko La Paz'erako egazkiña Txile'ko Santiago'n artu genuan. Baita gure bizitz ontan ikararik aundiena ere. Bost milla metrotik gora ginjoazenean, motor bat gelditzen dala bat-patean, gero beste bat, eta bestea... jexten asten da... jexten... eta bat-patean motor guztiak gelditu... ikaragarria... izukarria... eta egazkiña 4.150 metrotan gelditu... gureak egin dik... au joan dek...! baiñan ez, La Paz'eko geltokian geunden, 4.150 metro bai-ditu».

«Asieran ez genuan nabari goiegote ura, bai ordea arratsalderako. Eunbat metro ibili ordukoxe gelditu egin bear nekaturik. Uria 3.800 metrora dago».

«Gaizki irten zitzaigun arratsaldekoa, oxijenoa artu bear izandu zuten batzuek. Dantza batzuek, espatadantza, dantzatzerik ez zan izan. Nik, San Maurizio'mendian, or, ikasi nuanagatik edo «Xinko»ren aolkuengatik... alboka jotzerik izan nuan».

«Bolivia'ko mixeriak dar-dar jartzen zaitu, orrelako mixeririk ez det iñoiz ikusi. Baiñan auxen politena, guztiz aberatsa dala meatzetan, urrea, burnigorria... Emengo lotsagalduek zuzentzeko Ché batzuek bear. Auxen dezu kaiserkeri aundiena dagoan erria. Esan digutenez, igaz, batzar batean zeudela-ta, egazkiñak joan, bonbardeatu... eta bi milla ikasle il... izugarria!»

«Berealdiko gizaki ernagarri bat ezagutu nuan Bolivia'n. Santa Cruz'en bizi zan, sestaotar auxe. Emen euskal sendiak artzen ginduzten, ta neri bere etxera joatea tokatu. Bere etxeruntz ginjoazela, bere etxea apala zala oe gogor xamarra izango nuala, esaten joan zitzaidan. Iritxi nintzanean, ikusi nuanean, ezagutu detan etxerik beartsu eta umillena zala aitortu bear. Oea, ol batzuek... eta manta batzuek. Sabel uztutzeak egiteko... baratza. Euria zan egun batez, lasai-lasai esan zidan, atean egiteko... busti ez nadin».

«Guda ondoren espetxean ta gero zortzi urte langille batalloietan. Bazekian zer zan eramanpena. Frakaso batzuek izan zituan, orain zizelkari edo tallagille. Guztiz beartsua bere etxea. Oso ikasia zan eta euskaldun benetako bat, gudaria... santugai bat bezela, gogortasunean bizirik. Baiñan begirale obeagoa espiritu gauzetara (jakinduriari) materiari (diruari) baiño.

Zerizkionean, etxean zuan lantegitxoa utzi eta idazten jartzen zan. Izparringi batean idazten zuan eta betibeti euskal-gaiei buruz. Atilio Ereñazaga, 55 urte. Gizon onetzaz orrenbeste itzegiten ba'dizut, nere ibillaldi ontan ezagutu detan gizonik osoena dalako da. Bere etxea ollotegi bat litzake Euskal Errian. Ba, emen, egunsentirarte jarduten nintzan berarekin izketan. Etxe ontako gauz guztiak ziran etxetiar, bazter batean xagutxo bat ikusten nuan, bestea atzekaldetik, baita oe edo ol aren azpian. Eramanpenez esaten zidan: lenago eskuaz eizetzen nituan, orain pakean lagatzen ditut, arrapatzen ba'ditut beste batzuek etorriko zaizkit, arrotzak, eta auek etxerako egin diralarik jarrai dezatela bertan... ez al zaizu iduritzen?»

«Lendabiziko egunian neronek ere uxatu egiten nituan, urrengo egunez ezagunak zitzaizkidan, eta Atilio onaren filosofia ikasi nuanez pakean lagatzen nituan... nituan bi manten erdian sartzen ez ba-zitzaizkiten beintzat».

«Leioetan eta atean zelofanezko paperak. Euria egitea gertatu zitzaidan egun batez... eta arat-onat ibili nintzan aterpe billa. Lau egun egin nituan. Egun batzuetan oeratzeko goizeko bostak edo seirak... eta bederatziak edo amarretarako antxen zetorkidan otska: Modesto... eup! Carota, no vas a estar todo el día durmiendo, no?»

«Onela bizi zan Atilio aundia. Aberatsa izana zan, orain beartsua... bañan bere zizel-arostegi txiki artaz ba-zeukala bere emaztea (eri-etxean) eta alabarentzat, eta onegatik arduratzen zala geiago espiritu gauzekin materia diranekoekin baiñon, esaten zidan. Loreilla'k 30 eta 31 eta Garagarrilla'k 1 eta 2 egunak, onela bizitu nituan, ala ere pozik».

«Etxe artatik irten nintzanean, xaguak ere pena artuko zutela uste det. Ogi papurrak eramaten bai-nizkien, ol gogor aien gañean etzaten nintzanean emateko».

UXOLA

ARTZAI ONAREN OMENEZ

YON AITA SANTUAREN ESANAK ETA EGIÑAK

BULGARIA'RI AGUR.—Amar urte Bulgaria'n eginda, Turkia'n Eleiz-Ordelaritzarako izentau eben, Bulgaria'ra yoan zanean, gitxi batzuk baiño ez ziran arrera egitera yoan ziranak. Ostera agur egiteko gizozte izugarriez gaiñera, ainbeste naigabe emon eutsozan errege Boris III'aren ordezko, Laterri-Ordelari guztiak eldu ziran, eta «ortodoxo» en buruena be bai. Eta Ronkalli'k onantxe agurtu zituan: «Antxiñeko oitura batez dakigunez, Irlanda'n Gabon aurreko egunean, etxe guztietan leyo ertzean argi bat ixiotuten dabe, gau done aretan ostatu billa dabiltzan Jose ta Andra Maria'ri adirazoten emoteko, an sutondoan, eta Jaungoikoari eskerrak, gertauta dauken mayagaz sendi batek itxaroten dautsela. Aurkitzen nazan tokian aurkitzen nazala, munduaren azkenengo ertzean izanda be, bulgariatarren bat bere erritik urrin, nire etxearen aurretik igaroten ba'da, nire leyoan kandela bat ixiotuta aurkituko dau. Atea yo dayela ta zabalduko yako. Katoliko naiz «ortodoxo» izan, ez dautso ardura, Bulgaria'ko bat da ta orixe da naiko. Nire etxean sartu leiteke ta arrerarik biozkorrena aurkituko dau».

Erri-izkuntzari zor yakon itzala

Ronkalli yauna 1925'gnean Gotzain egin eben Bulgaria'ra yoan aurretik. 1935'gn urtean Turkia'ra bialdu eben. Eta Bulgaria'n bulgaroera ikasten asi ta abadeai bertako izkuntzea ondo ikasten alegintzeko esaten eutsen lez, Atartük'en Turkia'n be bardin egin eban. Baita eleizkizunetan turkoen izkuntza sartu be; agirietan turkera erabilli, ta gotzain-eleizan eta enparauetan, itzaldien aurretik Ebanjelio atal bat turkeraz irakurteko aginduaz gaiñera, Eukaristi-eleizkizunen ostean italeraz ala prantseraz esaten ziran otoitzak turkeraz eragin. Lenengo idazkia be turkeraz egin eban. Aita Santu zala be, gero, «Pacem in Terris»en argi ta garbi irakatsi eban erri izkuntzari zor yakon itzala zaintzea zuzentasunak eskatzen ebala.

Ronkalli'ren zurtasuna

Atartük lenengo guda ostean asita, Turkia goikoz bera aldatuten ebillan. Europatar biurtu gura eban. Orretarako, legeak, oiturak, yazkerak eta abar, guztia aldatu eban. Ziñeskera ta erlijiñorik ez eban aintzat artzen, maomatarrenik be ez.

Orretarako eleiz-gizonei eurei egokioen soiñekoaz agirian ibilten galerazo egin eutsen Ronkalli'k, zurtasunez yokatzen eban ba. Agintariak bere yoan-etorri ta esaten ebana yakiteko alegintzen zirala ondo ekian eta ain zintzo yokatzen ebalako, arrituta egozan eta begiko egin yaken. Bein baten, abegi ona egingo eutsoela aurreztik yakin izan eban eta erbesteko laterriekaz artu-emonetarako Ministroagaz ordu erdiko autu aldi bat izan eban. Eta esan eutson: Nik, gauza guztietan alkartzen dabena, banantzen dabena baiño lenago aukeratzen dot». Baita katolikoen aldetik ez bildurrik izateko, legeak, naizta batzuetan ain gogozko izan ez, itzalez zainduko zituela. «Au egiztuteko aldean dodan soiñekoa naiko da».

Ori ondo egiztu eban Estambul'era yoan zanean. Ordelariaren yauregiko ate buruan, edestiko eztabaidak ebazteko nonbait «qui ex Patre Filioque procedit» idatzita ikusi ebanean, esan eban: Ez ete ziran «Filioque» onegaitik Sorkaldeko eleiza guztiak Erroma'tik aldendu? Ta, Ronkalli'k idazkun ori kentzeko agindu eban.

Salatari artean

Europa'ko bigarren gudaldian, lenengo beintzat Turkia ez bata ta ez besteen alde egoan, eta salatariak, ejearen alde ta alkartuen aldekoak, guztiak Aita Santuaren Ordelariak zer egiten ete eban oartzen ebizen eta Ronkalli'k esaten eban: «Iñoiz be ez neban yakin eurak alkar ala neuk zer egiten neban oartzen ete eben».

Bere egunkaritik, 1938

«Ekin eta yasan; zeruko atsedena olantxe bakarrik yaritxiten da. Beti arazotuta ta iñoiz be iradu barik ibiltea, lurrean zerua eukitea da. Samintasunak eta eriotzeak birrindu izatea gauza ederra da gero berbiztuteko».

MANTEROLA'TAR GABIREL

abesbatzen antolojia

Bein eta berriz, Oñatibia'tar Ion'ek Euskal Abesbatza Antoloji aparta eskeiñi digu, lau disko aundi apaiñetan gaiñera. Or ditugu, oso ondo eratuak, ainbat eta ainbat euskal abesti zar ta ederrak!

Abeslariak gorenengoak dira, ta Abestien-egilleak milla aldiz geiago. Ori legez koa da: Aita Donosti, Guridi, Zubizarreta, Iruarrizaga, Rematxa ta Aita Olazaran, ez dira egunero sortzen, zoritxarrez. Ta ez dira sortuko ere, une onetan beintzat.

Emezortzi taldek artzen dute parte grabazioan, ta oietatik bat Lizarra'koa da, ta beste bat Tafalla'koa. Dakigun bezela, bi erri polit atsegin oiek, aspalditik galdu dute Euskera. Gudak zirala, agintarien gogorkeria zala, jendearen zabarkeria ere bai, orregaitik daude dauden bezela.

Dana dala, ez al da miraria? Euskera sendo goxoan katatzen asi zaizkigu gure anai naparrak. Ego-aldekoak. Ba-da zerbait! Orain Euskeraz kantatzen dute... gero laister, noizbait, ez al dute Euskeraz itz egingo? Nork daki! Oso beroak dira naparrak, iñoiz geiegi. Berotasun ori Euskeraren onerako baldin ba'da aurrera! Esnatzen asi dira beintzat.

Errexak dira itzak eta zaillak egintzak, batez ere gaurko Euskalerrian. Itxaropena, oso izkutuan egon arren, etorriko da noiz-bait gure Erria poztutzera, alkartzera, piztutzera. Ekaitza ez da betiko izango. Naspil onetatik zerbait ona aterako da noski.

Ta, lantxo au bukatu baiño len, zorion beroak nere adiskide on eta zintzo dan Oñatibia'tar Jon'eri! Or ibilliko da Uztaritze aldean, «kanpotarrei» Euskera erakusten; etxekoak baztarrean utzi degulako noski! Bai, bide ona aukeratu du gure Ion'ek, onena erdikoa. Maitasuna, askatasuna, ori da, Erriaren alde lan garbia, zintzoa egitea!

Tolosar abeslariak orain ere poto egin dute! Zer pena!

MATXIN

SAN MIGUEL

Euskal idazti ta eresmintzak
Gaur, atzo ta beti-betiko Euskal-gaiak
bakarrik eskeintzen dituan etxe bakarra.

Alda. Urquijo, 60 - 5'gnean.
42 24 98 urrutizkiña

BILBAO, 11

KIROLAK

Olinpi-Jokoak

LENGOAK ALA ORAINGOAK OBEAK?

Ez da errez itaun orreri erantzuten. Egia da, ezin ukatu, geroago ta marka obeak egiten dirala edozein jokotan. Baiña ezin esan oraingo gizonak lengoak baiño indartsuago, bizkorrago edo trebeago diranik.

Gizartean aurrerapen aundiak egin dira arlo guztietan. Eta joko-arloan be bai.

Zelan arnasea artu, zelako janariak, anka-besoak zelan erabilli, zelan ondoen salto-egin... itz baten esateko, TEKNIKA obea dago orain edozetarako.

Ori dala-ta, len baiño marka askoz obeak egiten dira orain.

ONDU BAIETZ!

Argibide bi aitatuko ditugu.

Luzeerako jauzketa edo saltoan, lenengo Olinpi-Jokoetan (1896 urtean) txapeldun izan zanak sei metro t'erdiko saltua egin eban, oztaz-ozta; orain, asko dira zortzi metro baiño geiago salto egiten dabenak.

Lasterketa luzeena, Maraton izenekoa da: 42,195 kilometro). Esan dogun urte orretan Atenas'en irabazi ebanak, iya 3 ordu bear izan zituan. Onenak, orain, ordu bi ta lauren baiño gitxiago bear dabe, 42 kilometro luzeok egiteko.

MARATON

Maraton, Olympia lez, Grezia'ko erri baten izena da. Erri orren inguruetan gudaketa aundi bat izan zan Persia'ko eta Grezia'ko gudarien artean. Burruka gogor aretan 6.000'tik gora il ei ziran. Azkenean, Grezitarrak irabazi.

Grezitar gudari bati agindu au emon ei eutsen: al eban ariñen Atenas'era joan bear ebala, Grezitarren garaipena ango agintariei aditzera emoteko.

Maraton erritik Atenas'era bide luzea zan: 42 kilometro inguru. Eta gudari ori ariñeketan abiatu zan. Nekearen nekez, ebainduta, ler eginda, eldu zan. Eta garaipenaren barria emon da gero, bertan ilda jausi ei zan gizajoa...

KIROLAK, OSASUNGARRI

Kirolak, bear dan neurrian eta bear diran ardurak artu ezkero, on-onak dira osasunarentzat. Oraingo kirolariak erakusle onak ditue, eta sarritan izaten dituez osalarien azterketak.

Egia da, egiñalak egiten ikusten ditugunean, penagarri agertzen dira askotan: aurpegian erakusten dabe neke aundiaren ezaugarria, agiri-agirian egoten da euren neke-miña. Baiña ez larregi estutu: neke ori beingoan aldentzen da, miñutu batzuk geroago, jokaldi aurrean baizen gordin eta nasai aurkituko dira.

PAXA

ESTROPADAK

GETARIARRAK GARAILLE

Ondarrabi'ko uretan teiñerillen saioa jokatu zan. Bederatzi txalupa ziran, ta iru taldetan arraunkatu zuten. Lenengo saioan onela eldurik:

Zuberoa-B; 14-48-1.
Zumaia-B; 14-52-1.
Ernani-A; 15-36-4.
Bigarren saioan:
Zumaia-A; 14-25-2.
Ernani-B; 14-30-1.
Zuberoa-A; 14-45-4.
Ta, irugarren saioan:
GETARI; 13-53-0.
Don Ibane; 13-56-4.
Ondarrabi; 14-18-1.

Ta guzien banaketak egin ondoren, orra nola gelditu diran:

1.—GETARI, 18 puntu; 2.—Pasai Don Ibane, 16; 3.—Ondarrabi, 14; 4.—Zumaia, 12; 5.—Ernani-B, 10...

Jendetza ederra bildu zan. Ondarrabi ain erri polita ta apaiña danez, bere ondartza aundiakin, aurrez Lapurdi'ko lurrak dauzkala ikuskizun aundiakin, ta an bildu ziran erbesteko ta bertako ikusleekin, egun eder ta zoragarria igaro gendun. Ta zer esanik ez, gure poza ta atsegiña, gure erritarrak garaille atera zinarean. Aurtengo traiñerilla auetan, getariarrak ortzak erakusten ari dirala dirudi... Oraindik, ordea, ez dira bukatu, ta datorren igandean Zarautz'en jokatuko dute.

AUNDIEN ARTEAN

Santander'ko uretan ere estropadak izan dira. Auek treiñeru aundienak: Pedreña, Santander Club de Remo, Kaiku, Ondarrabi ta Portugalete.

Ez gendun uste pedreñatarrak irabaziko zutenik, Donibane Loitzun'go aurreko igandean, Lasarte aurretik eldu zalako. Ala ere, Pedreña'k bere uretan, ostikolariak beren zelaiten bezela, etxean, obekiago egin zuten arraunean, ta orrela garaille atera. Begira euren etorrera:

1.—Pedreña, 19-24-1.
2.—Santander Club, 19-25-3.
3.—Kaiku, 19-26-9.
4.—Ondarrabi, 19-36-5.
5.—Portugalete, 19-54-5.

BERAUN'GOA


Garillaren 29'an eta 30'an ere, estropadak izango dira Pasai'n, ta egundoko arrera aundia izan dute. Ikusiko degu Donosti'koen aurretik jokatzen diran abek zer agertzen duten gerorako.

Baraun'go sari orretan zazpi traiñeru auek izango omen dira: Astillero, Orio, Getari, Pasai biak eta Beraun'go arraunlariak. Pedreña ta Kaiku ez omen dira etortzekoak. Kaiku'k, il onen 31'n Bizkai'ko sariketan jokatu bear dualako, ta Pedreña'k, ez dualako etorri nai izan. Pasai'ko ibaia ez da aundia, orregaitik laukotian aurraun egin bearra izango da. Sariak: 100 milla laurleko lenengoari. 75 milla bigarrenari; 60, 50, 40 ta 30 milla urrengoeri. Bidea, 3.600 metrokoa, iru aldiz bira emanik. 29'an, arratsaldeko seiretan izango du asiera, ta arratsaldeko bostetan 30'ean.

Bai da uarten aparra ta bitsa arraun kontuan. Arraunketa oiek guziak, treiñerueri oso ongi etortzen zaie gero emen Donosti'ko estropadetan marka aundiagoak egiteko. Izan ere, alako aizkurea ematen digute Kontxa'ko arraunketak... esan genezake, beste guzietako jokaerak baiñon aunditasun indartsuagoa dutela.

Beraz, jarraituko degu gai ontaz.

E. OZKIN



Zure ibillaldietan
lasaiago izateko,
gure Bankoak danerako
eskeintzen dautsuzan
bidarien txekeak
naiz eros-txartela
dozuz egokienak.

BANCO DE BILBAO

Onek emakumeen eskubideak onartzen ditu.

Aprobado por el Banco de España.

Beloke'ko abat barria

Aita Xavier Dihacer, «Iratzeder».

Azkenengo OTOIZLARI aldizkaria, geiena, Abat barria dala ta Beloke'n izan diran jazoera pozgarriai buruz idatzita dator.

Euskalerri guztiarentzat pozbide eder bat dogu gure «Iratzeder» ospetsua abat izateko aukeratua ta onetsia izatea.

Lekaide bakarzaleak garrantzi aundia izan dabe gure Erriaren kondairan. Gogoratu dagiguzan San Millan, Santi Mamiñe... Onetzaz asko irakatsi leiskigu Lekuona'tar Imanol jakintsuak.

Gaurko gure egoera larri onetan be lekaide onein laguntza Erriarentzat onurakorra izango dalakoan gagoz.

Orrexegaitik, OTOIZLARI'ren 66' garren zenbakitik artuta laburpen au dakartsegu AGUR'eko irakurleai. Euren euskerara urreratzeko bide be izango al jaku.

* * *

Abendoaren 31

«Hotz da... aroa ilun. Nor harrituko da lotazillan?»

«Aita J.-Pierre Inda, gure abadeak, jakinarazi zaukun mezu berezi bat deneri ezagutarazi nahi zuela, bezperak aintzinttoan».

«Huna zertsu erran daukun: Asmatua dukazue zeren gatik dukegun elgarretaratze au... Nere karguaren uztea galdeturik, Erroman onartu naute».

«Hemendik harat Aita «Priorari» emaiten diozkat ahalak oro. Nere ordaina hautatu beharko duzue».

Abade berriaren hautatzea

«Otoitzean ginauden gu ere goiko Aitari, sainduen bitartez galdetzen giniolarik hauta genezan guk behar gizona... gure etxea zuzen ibilaraziko zuena...»

«Urtarrillaren 21-ta, ortziralea, finkatu zuen abade berriaren hautatzeko. Egun orroitgarria».

«Urtarrilla... edo. Bidasoaz han heindiko Eskualdunek dioten bezala... il-beltza izana gatik, argi zagotzin gure aurpegiak eta bihotzak».

«Bozak argitaratuak dire... Hautetsiaren izena garbiki eta goraki botaia: Aita Xabier Diharce».

«Gure Abade berria: Donibandarra. Berrogoita hamabi urte. Errotik eskualduna. Ogoi bat urtez fraide gazteen moldatzaile egona eta segidan priadore, abadearen laguntzaile».

«Zortzi bat egun iraganen dire... Eta huna Erromatik D. Gabriel Braso, gure Abade presidentak egorri zun mezua».

Adiskideen hitzak

«Zazpi Probintzietako eskuarak ikas ginezazke hek denak hurbilik irakurtzen baginitu. Ez ditazke guziak agertarazi: liburu bat beharko ginuke. Huna hekien artetik zenbeit lorietan irakurtu ditezkenak. (Pragatik, Ondarrabitik, Alsasutik, Baionatik, Hazparnetik, Senperatik, Baionatik, Loiolatik, Zokotik, Iruñatik, Afrika-Burunditik, Azkainetik, Madagaskarretik, Donibane-Lohitzunetik, Garazitik, Uztaritzetik, Madriletik, Kaliforniatik, Mexikotik, Argentinatik, Parisetik, Bretaniatik eta Bilbotik Gallastegi jaun erretorak)».

«Mezu edo gutun bat egortzea baino adeitsuago baitzen, izatu da berehala Aita Abadea Baionako Jaun apezpikuaren agurtzerat, berria emanik, harekin abade benedikatze eguna finkatzeko... Damu handitan erran dio etzikela benedikatze egunean Beloken kausi, Erroman behar zuelakotz orduan... Itzuli luze bat egin du ondoko aldi batez. Donostian gaindi Bilbaotik jo batzuen Iruñe-rat berebillez... Bilbaon D. Carmelo Etxenagusia, gure abadearen adixkide mina da. Ez ote dirade elgarrekin Euskualtzaindian? Elgarrekin bereziki liturgiako lanetan? Biak olerkarien batzordean? Horrela izandu da Bilbaon agurtzeko Jaun Obispoa eta hunen sekratarioa... Gazteizen, edo Vitorian, egin zuen saratera apez-gaien etxe nagusian erakasle ezaguneri eskua unkituz...»

Otsaillaren 4'ean

«Tolosako ondoan diren trapizten etxetik etorria, hemen ginuen Jean-Pierre Inda abade ohia».

«Lañoki laguntzen du abade-alkirat... Ematen diozka eskuetarat fraidetxeko gakoak, zigiluak, erreztuna... eta hogoi-ta bi urtez berak erabili kurutzea... Orduan adiarazi zauzkun hitz batzu bihotzak aldez alde zilatzen zituela».

Egun handia

«Martxoaren 21-ean Aita Abadearen benedikatzea. Hamarretarik harat, bezperan jinez bertzalde, heldu zauzku adixkide minenetarik zenbeit: Hego edo Ipar Euzkaditik, hemengo eskualdetarik: gurekin bazkalduko dute».

«Apezpikuetan lehena Theas, Lurde-ko apezpiku ohia, Betharram-eko buruzagi lehenetarik batekin Grech Aitarekin. Ondotik berehala Baionako gure apezpikua, Vicent jauna bere sekretarioarekin... Laxague Bikario Jenerala...»

«Hamabiak eta erdiak... Fraideak emaiten dute tenore hartako otoitza... Bazkaltiarrak hor dire... Lazkaoko abadea, beti lerden eta erne, Tournay-koa, Amezpil kalonjea, apez andana bat... Hor denek gora daukagun idazle eta pertsulari famatua «Basarri», bere adixkide Joakin eta Rafael Zubiria bi anaiek lagun, hekiekin Fernando Artola... eta... eta... Orai deserta... desertaren deserta... edo onkarien onkaria: Basarri pertsutan».

* * *

«Zer arratsaldea! Iduzkiak jotzen du... Bazter guziak epelak dauzka. Hamaseitan ditugu egungo elizkizunak... Jendea heldu da ahalik... Hamaseiak aintzinttoan apez meza-emailleak barnean dira... Ehun eta ogoi'ta hamar bat. Ebanjelioa irakurtuta abadearen benedikatzea... Hor-azu Erregula..., 'Erreztuna'... Abadearen eta fraidetxearen batasun seinalea, 'Abade-makilla'... manamenduaren froga...»

* * *

«Mendixkaren gainean, hemen gaude Beneditanoak, Jainkoaren laudoriak errepikatzen ditugula gaua zerratzean, goizetan, egunaz, lanen artetik. Zuentzat otoitz eginen dugu!»

Beloke-n,; 6-V-1072.

AGUR'erako laburpena.

GAMIZ'EK



ARTEKALE

Guenkale, edo bere berezizko esakeran, Goienkaletzaz oraintzu mintza gendun. Goienkale deitze ori —bertan asi oi danez ia nabaritu gabeko zazpi kaleen goruntzko aldatz txikitxoa— ortixetik atan be etorkion.

ARTEKALE, Guenkaletik asi, ta Dendategi edo Tenderi kalearen jarraikeran, erdi erdian datzanez, bere izen errez-egokiaren iturburua or daurkigu beraz. Aspaldi baten, gizaldiak ba-dira, Prantzesen kalea izentatua be izan ei-zan. Ez da arritzeko. Bilbo'ko Parte Zaarreko urte lenen jori-loratsuak bai-ziran ordukoak egitan, oingo gure Bilbo'ko aurrerapidearen oiñarri ta eusmen bikaiñak egiazki.

Oro dala bide, salerosle prantzetarrak gureganatu ezezik bertakotu ere egin ziralarik, kale ontako salerosketan arte ta esku garrantzitsua izan ei-eben, ta euren asierako dendatxo ta oial etxolak jasorik, luzaroan iraun.

Gerora, zidargiñak, ezpatagiñak ta oskilari-entalladoreak ere bertaratu ziran ta zer esanik ez, beste guztiriko euskal dendari saltzailleak. Miesak eta negurako jantzi lodikoteak batetik, gaur eguneko kaiku ta orain berrogei urte inguru arte, orduko baserritarrak janzten ebezan Baiona'ko garantz, karatillo edo lapurditarren izkeran barreneko motz, deiturikoen aurrelariak ziur-ziur; ta urtearo guztirako, emakumeentzako geien bat soiñeko mee-luzangeak —orduko giro-aroaren ezaugarri— eroaleari eskeintzen zituenak bestalde.

Denporaldi ayek, olerkari ainbatek emesturikoak, euren zeregin berezia bete ebelarik, betiko ayenatu ziran. Orain gaurkotuta, begitalditxo bat jaurti daigun gure biotzeko Artekale'ra. Ainbat eta ainbat urte bertan bizi izana naiz. Urtero oberantz doa. Garbitasun usaiña nunai dariotso. Etxe ta saltoki dotoreakaz apaindurik daurkigu. Zazpi kaleetako guriña lez dala desakegu.

Ta euskerea bertan be sarri askotan biotz alaitasunez kale zear eta dendetan bardin dantzugu. Ta orain oartxo bat dendariei nire euskal-zerrendan zuen izen guztiak idorotzen ezpadozuez. Lantxo ontan danok sartu ez arren, euskaldunen biotzetan zagoze, ta euskal-kutsudun biztanle danok zuen denda bete-orniduetan sartuko iatzuez barruraiño ukatzeke; euskerazko agerkari, margo edo itxurez beiñipein ba-darabiltzue euretan.

Erribera kaletik asita, arkupetan, eskumaldean Goiritarrak daben oial-jantzidun dendea dozue. Ezkerraldean, bardin Lasagabaster'ena. Bitxi salokietan andik aurreratxoago Gondra, San Anton'eko abeslari trebea izan zananaren, ta gerokoan bere alargunak eroian saltoki dotorea. Ormaz-orma, Bengoa Etxea, yaukala, jatorrizkoa, onek bere oial, bitxi ta guztirako jantzietan, Gisasola Andoni'gaz ta emakumeentzako azpiko jantzietan Bilbo'ko saltzaile onenetarikoa dogun Zubiri'tar Sabiñ'egaz, bateon batzuegaz bardintzekotan, kalekoen artean ezeze, Bilbo guztiko garrantzidunen artean leku berezia dabenak.

Zubiritarren anai gazteena Mardones'egaz baturik, argontzi ta edergaillu antxiña ta barrien sal-etxe aparteko bat opa dautsula, ber-bertan dozu. Argontzietan eta tximistindar gaietan, Beristain anaiak bere, lau neba-arreba dazaudaz, yayo-yaoak dozuz, Artekale erdi-erdian neba-arreba bik, besteak aruntzago, saltoki ederrenarikoak dabez. Oiñetako saltzaille euskalduna Otazua dozu, Manolo'ren emaztea bere ez al dabil emetik urrin, olaetatarra bera, euskera polita mintzatu daroa. Otazua, Zubiritarren senditarkoa bera be dozu.

Oial jantzietan beste euskaltzale benetakoak, Bilbao'ren alarguna batetik, ta onen urrean Ugalde zaar-gazteak bestetik, biok Ugaldetarrak, aita-semeak diralarik, euskera errikoi alaitsuan mintzatu al izango dozuz.

Amaitzeko, droga saltzaille Torre Jon'en dendea, Goian Bego nire lagun on-ona izanikoa. Bere alargunak ta batik bat urte batzuk dirala ezkonduriko alabeak bertako zeregiñak daroez. Euskaldun sutsuak dan danok.

Larregi luzatu naz. AGUR'eko zuzendariei ta irakurle eroapentsuei parkatu dagistazuela daskatzuet. Beste bat arte. Nire Artekale'tik agur.

ARREGI'TAR YOSU

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

ERRIETAKO BARRIAK

Ondarru

TAFALLA'KO UDALDIA

Aurten be, Ondarroa'ko parrokixak udaldi edo «kolonia» batzuk antolatu ditu Tafalla'n, Ondarroako umientzat. Iru edo lau txanda izango dira. Txanda bakotxa amabost egunekoa izango da.

Lenengo txandako berrogeita amazazpi (57) umeak Tafalla'n dagoz; bigarren eta irugarren txandakoak zain dagoz eta jenterik baldin bada, laugarren txanda bat be egingo dogu.

Umeentzako, amabost egun oneik, opor zoragarriak dira: goizean naibeste lo eginda jagi, gozaldu, euren oiak egin eta gero goiz guztirako pizinara; ordu bietan bazkaldu ta gozeagaz bazkaldu be; bein eguerdiko eguzkiaren berotasuna epeltzen danean, arratsaldeko bostetan-edo merixendia artu ta pasiadatxo bat egiten dabe; gero erriko «parke»ra tobogan, ziburu ta nik ez dakit zenbat jolasetan ibiltera.

Eguna amaitzerakoan, illuntzeko 8-30' tan, gure Jaungoiko onari zor iakona emoteko, meza santua egiten dogu. Afalduta gero neka-nekatuta... lotara.

Udaldi au eder-ederra da umeentzako, batez be euren osasunerako: izan be, Tafalla'ko giroa oso ona da, legorra ta kontaminaziñorik bakoa; emen laster garbitzen dira eztul eta katarro zikiñak.

Orrez gaiñera, umeak asko ikasten dabe: etxetik kanpora ibilten; emoten iakena jaten; euren gauzen ardurea eukiten; biartxo batzuk egiten (oiak ederto egiten dituez); lagun ez-ezagunakin artu-emonak eukiten; kapritxo ta mimo gitxiagogaz biziten... Zenbat ume euren etxietan mimoz erre-erre eginda egonarren, emen ederto konpondu biarra eukiten dabe... naiago neuke euren gurasoak ikusiko ba'leukiez.

Aurten, egotez pasionisten kolejioan dagoz: toki ederra bere baratz zabal-zabal eta frontoiagaz. Onez gaiñera pasionistak oso ondo artu gaitue ta beti daukaguz prest edozetan geuri laguntzeko.

Txanda bakotxean, umeak zaintzen, abade bat, monja bi ta laguntzaille bi egoten dira.

Zer esanik be ez dago, ondarroako monjen laguntasun barik ezin izango genduzala «kolonia» oneik antolatu: gure erriak ez daki ondo monja oneik, ixil-ixillik, egiten daben lan ona.

Gero, neska laguntzaille batzuk daukaguz, euren borendatez, umeeri laguntzeko prestatzen diranak: Bene ta Josune Azkarate, ta udaldia pasaten etorri diran euren lagunak: Nekane Arantzamendi ta Mirentxu Etxebarria. Laurak neska politak, laguntzaille zintzoak, eta neska «famauak». Zer nai dozue geiago?

Il onen 9'an, domekaz, lenengo txandako umeen gurasoak etorriko dira euren seme-alabak ikustera ta, bide batez, egun eder bat pasatzera, eurak esango dabe nik diñodan guztia egia dan ala ez.

J. GARITAONANDIA

Oñati

EUSKAL LEIAKETA

Oñatz Batzokiak eralduta, Euskeraz eta erderaz idazteko leiaketa bat izan da, erriko ikastolako aur danentzat. Euskerazkoan sarituak oneik izan dira: Zortzi urterartekoetan, lenengoa Jausoro'tar Nekane, bigarrena Urzelai'tar Arantza. Zortzi urtetik amabi urte bitartakoetan, lenengoa Mendizabal'dar Maria Belen, eta bigarrena Lizarralde'tar Beatriz. Sari berezia, euskeraz onduen idatzi zuena, Mendizabal'dar Maria Belen'entzat.

ERIOTZAK

Madina aita, agustindarra, euskal musikalari entzutetsua il da, bere irurogeta bost urterekin. Urte asko Ameriketa beian eta goian egiña. An eman zizkion lenengo iru perlezi joaldi, ta konturatu zanean eztzala bera denpora luzerako, esan omen zun: «Ni iltzera Txipitxalle'ra». Zubillaga auzoan dagoen izen ortako baserria bai da bere jaiotetxea.

Erriak baita zenbait erbestekok ere ederki erantzun zuten bere azkenengo illetetan. Urte askotan bere aberritik kanpora bizi izan arren, etzan oso aztuta bizi bere aberriko kontuekin. Bereziki, euskal musikarekin. Berak bizi zala, musikari buruz, egindako lan guziak bilduma batean agertuko omen dira. Gauza ederra izango da orixe, bere oroigarriz.

Il da baita, Uribarri auzoan Tuertoko baserriko etxekoandrea Barrena'tar Petra. Baita Mugartza'tar Errodrigo, arakiña, irurogeta amazortzi urterekin. Eriotza oiek mindu dituzten sendi danak, euren naigabean lagun gaitzate.

ABELETXE JAUNARI

Zuk, L. Mendizabal'eri buruz diozunarekin, osoosoan zurekin naukazu. 1937'gn urtean, nolabait Donibaneratu nintzanean, L. Mendizabal jaunak eraman ninduan bear zan tokira, ta eskuratu zizkidan bear nituan paper eta agiriak, Donibane ta inguruetan legez ibiltzeko. Bijoakio nere biotzetiko agurra L. Mendizabal'dar Ixaka jaunari.

NERE AGURRA

Euskel-idazle dan Basa-Jaun jaunari. Zuk, Urbia'n, neretzako utzi zenituen eskumuiñak, bere egunean artu nituen. Eskerrik-asko zure oroitzagaitik.

OMENALDIA

Oñati'ko Txantxiku Txoko batzokiak, apari baten bitartez, Arrasate'ko Arriaran bigarrenari, omenaldi bero bat egin dio. Omenaldi orrek bere egiazko gatza ta piperra idukitzeko, jaun bat falta zan aparian. An zeru goitik begira egongo dan Arralde jauna.

ANAKABE JAUNA

Bere jaioterri maitean arkitzen da, bere udarako egonaldi atsegiña igarotzen. Ongietorria ta egotea opa diogu.

JAIOTZAK

Azkenengo il ontan amasei bataio izan dira. Amaseitik amaika euskel izenekin bataituak izan ziran. Izenekin bezela, izanarekin ba'goaz, gure Euskera gaizkatua degu. Nere zorionak danori.

ZELETA JAUNA

Nora aldendu zatzaigu? Lengo batean idazki txiki bat idatzi nizun, lengo zuzenbideaz, eta erantzuna artu nuen «devuelto» itzarekin. Norabait aienatu zera lengo bizitokitik, Atsegin izango litzakit jakitea, nundik nora zeran.

ERRIZALE

Arratia

Urte onen zazpigarren illabeteko 19'gn egunean bizi naz, bizitz-ordulariaren besoak aspaldi antxiñara 36 urte atzeratu izan dodaz. Iruña ta Zaragoza dodaz gogoan, Gipuzkoa'ko ta Naparroa'ko ainbat toki biotzean.

Egun artan, 19'an, gudaritza egiten nintzaneta, otoz-otoka agindua betetuz Zaragoza'raiñoko bidea egin eta, gaberdi-goizalderantz barrien-barriz Iruña'ratu.

Illaren 24'an Bidasoa'ko Endarlatza zubia begipean, izkilluak danba-danbaka egun guztian. Sua ta kea besterik ezan izan. Illunabarrean Bera Bidaso'koa deritxon errira atzeratu giñan Santiago eguna emotera. Eta Bera'tik, nik dakit ba, nondik nora ibillian ibilliz Lesaka, Donestebe, Goizueta bere bai uste, Oiartzun'era eldu giñan.

Izentatu ezin dodazan baserri-etxe eder bitan gaba ta egunak igaroa naz. Batean, bizi ziran; bestea, utsik. Utsituak idaztegi polita eukan, lanik geienak karlista zaarren aldi ta kondaira euken mamiturik.

Kanpai-dorrean be izan nintzan Errenderi aldea zainduz. Azkeneko egunean «Vale por un par de zapatos» orritxo baten idatzi, oiñetako barriak jantzi, eta Pikoketa'raiño igonik, andrazkoak eta gizonezkoak ilda ta azken-arnasan bere bai ikusi. Erlaiz'en izan gendun aurrez-aurrezkarik gogorrena, ta iges egiteko egarririk leorrena eta, goizalde batean, Bidasoa zearkatuz eta, Endaia'n eta Baiona'n iru egun emon ondoren, neure lurraldera ta artaldera biurtu nintzan.

ZEANURI

Erri ontan dan agintari gorengo nagusiak egin eta izenbetu izan dauan orria irakurri dot. Erdera txukun gozoan egiñik dago, agindu zorrotz eta gogorrez beterik.

Txistua, albokea ta abar mututu egin dauz, auzotegietan ez da jai zaratatsurik izango, ezta ere jolas eta kirolik; Contamos contigo.

Gizonaren indar makalak eta arrokerirk andienak ezin ixildu ta geldi-arazo izadiaren izatea, eta Zeanuri'n be txistu, alboka ta abar mututuak izan diran arren, txoriak txorrotxio egingo dau, oillarrak kukurruku, txakurrak zaunka ta ausi, astoak arrantza, len orain eta beti.

LANDAJUELA'TAR A.

Berriz

Beste landara txikitxo bat dogu euskaldunon artean. Oso pozik entzun izan dogu umetxo onen jaiotza, bai!

Naiz eta Berriz'en bizi izan ez, aita berriztarra da. Garro'tar Jabier'ek eta Aranbarri'tar Arantza'k euren lenengoko alabatxue izan dabe. «Anais» izena jarriko ei dautse. Zorionak AGUR aldizkari onetatik gurasoei, ta alegindu benetako euskaldun zarien lez, erakutsi umetxoari euskal oitura on guztiak, bere onerako izango dira-ta.

Baita gure zorionak, AGUR aldizkari onetako idazleari, izeko egiña izan dalako lenengo aldiz; Karmele, egin bultzekadatxo bat «Anais» txikiari.

Zorionak,

ADIZKIDE BATZUEK BERRIZ'TIK

* * *

Milla ezker benetako euskaldun adiskideoi, umetxo onen gurasoen partez, eta ez gitxiago nere aldetik.

Alegindu gara euskal oiturak erakusten landara barri oni.

KARMELE

Tolosa

«SASI BATASUNA»

Edo «mala letra y peor espíritu de una pseudo-unificación» izenez, euskaltzain dan Labayen jaunak argitaratu duan liburuxkak, ots aundia atera du emen inguruko euskaltzaleen artean. Beldurrik gabe, ausarta agertzen da, adierazi nairik bezela, ausarta izatea ez dala ez gazteen ez zaarren doaia, ez banaka batzuen doaia, baizik danok dakigula ausartak izaten, ez dalako iñoren berezitasuna edo «patrimonioa». Tokitan zeok «biolojia» arazoa!

Nunbait, irakurtzen duanak, gogo biziz irakurtzen du bai zabaldu ere berria, ikusten degunez dakarren eskearekin.

Irakurri zazu, beraz, irakurle ez zaizu damutuko-ta.

EUSKAL IDAZKETAK

CIT'ek eraginda arestian izan dituguneta auek gelditu dira irabazle:

9 urte 11'ra bitartekoak.—Fakundo Bitoria Salaberria, 9 urtekoa.

12'tik 14'ra bitartekoak.—Lenengo, Xabier Ezkerra Lizeaga, 13 urtekoa. Bigarren, M.ª Pilar Elola Balerdi, 13 urtekoa.

Zorionak idazle gazte berri auei, ta jarraitu dezatela euskeraz idazten.

ABESBATZ LEIAKETA

Aurreko batean xeetasun zenbait ematen genituan CIT'ek eratutako Leiaketa onetzaz. Gaur esan bearrekoa auxe: abots naasikoentzat beartzen dan abestia, Juan Urteaga'k Leiaketa ontarako bereziki idatzi duan «IRULEA» abestia izango dala.

Abots berdiñekoentzat, Eduardo Mokoroa'k idatzi zuan «GURE IZKUNTZA» abestia izango dala.

Irailla'ren ogeitabostean bukatzen da epea sariketa ontarako izenak emateko.

ABESBATZENTZAT ABESTI SARIKETA

Auxen da CIT'ek eman ditan beste berri pozgarria. Euskal abestiaren alde saiaturik sariketa au ere, lenengo aldiz, eratu du:

Abestia, abesbatzentzat izango da. Bere luzapena ez du izan bear lau minututik gora. Izkia euskeraz egiña bearko du. Irabazleak 25.000 laurleko jasoko ditu. Epea. aurrekoan diogun bezela, Irailla'ren 25 garrena arte.

Xeetasun geiago nai dituanak idatzi beza Tolosa'ko CIT'era. Zuzenbidea: San Juan karrika.

ORAIN ERE ZIKIN

Oria ibaiak beti bezela
ura dakar barra-barra,
baiñan polita bear lukenez
agertzen zaigu zatarra,
ur gañetikan agertzen dana
ez da txanpañan aparra
bai begi-urdin ditun ibaia
itxusitzen dun makarra.

UXOLA

Galdakano

EZKONTZA

Txori ta egaztien gayetan ezituak, gu baiño ikasiagoak jakiña! esan oi-dabenez, txoriak jayotako ingurura etorriten dirala euren kabi barriak egiten, bidean eriyotza edo beste ostoporik izan ezpadabe, ta orixe berori egin dabe Arana eta Larrinaga'tar Josu ta Larizgoitia eta Larizgoitia'tar Gotzone neska-mutil euskotarrak. Gazte bizkor oneik gaztetxutatik Zaratamo'ko Arkotxa auzunen bizi ba'dira be galdakanotarrak dira, Bekea'ko auzunen jayoak dira, jatorriz auzune ortakoak diran gurasoakandik eta, bertoko basatxonu Igonkunde'ra etorri ziran Garilla'n 15'gn, bertan Kistar-ziñeskerak aginduten dauskun eran ezkonduteko. Txalogarria gazte oneik artu eben gogorapena. Eztira izan baiña gazte oneik basaleiza onetan lenengo ezkondu diranak, guk dakigunez orain ainbat urte beste gazte batzuk be beste ainbeste egin ebelako.

Dana dala, gure zorionik beroenak AGUR'en bitartez gazte alai eusko-zale orrei ta betiko zoriona aurkitu al-izango dabe euren biziera barrian.

JAYOTZA

Ezkontzak diran inguruan jayotzak be ziur izaten dira-ta, gure erri onetan be ainbat izan dira azkenengo aldia; onetariko bat Garilla onen 2'gn. izan zan Izagirre'tar Jokin ta Agirre'tar Miren-Bitore senar-emazte euskeltzaleen etxean, urteatan lortu ezinda aurkitzen izan diran seme eder batekin, bizirik lenengo dabenaz ugariturik, ikusten dabelako euron eusko-sendi baketsua. Euskaldunak izanik alan bear da-ta, Jon euskal izan goralgarria ipiñi dautse ugatzaukeran. Gure zorionak, Jokin ta Miren-Bitore, ta ea benetako euskotar zintzo bat azi ta eziten dozuben.

OSATEBAKUNTZA

Bilbo'ko osatetxe baten aurkitzen da osatebakuntza bat eginda Urgoiti'tar Arone, Atxutegi'tar Pidel'en emazte argi zintzoa. Zorionez ongi urten eban eta, laster etxeratuko dabelakoan gara, guztiz sendatuta, ta orretara izango aal-da.

Baita egun artan berean, Garilla'n 11'gn. osatebakuntza gogorra eginda aurkitzen da aspaldiko urteatan Bilbo'n bizi dan baiña galdakanotar jatorra ta beraz euskaltzale ona dan Yurrebaso'tar Kepa, aldi baten mendigoizale purrukatua ta beraz, erri ontako Gangure mendizale bazkuna'ren sortzaille bat. Ea Kepa laster osatzen baiz, zabel andia pizkat utsituko yatan-da, ea barriz mendirantza juateko «patxadan» aurkitzen aizan.

CLUD DEPORTIVO GALDACANO'N BATZORDIARI

Erriko ostikoketa bazkun erdel izeneko onek, bere sorkeran da orain ogeita amar urte edo geyagorarte «Elexalde Club» izan zanak, orri batzuk zabaldu ditu errian, eskatuten bertoko bizitaleari, arpidetu daitezala bazkun orretara, eskualdeko lenengo maillara igon dabenez erritar guztion laguntza bear dabela-ta, baiña, ikusten danez erriko euskaldunen bearrik eztabe euren artean, ba, eurak zabaldu daben orri orretan ez dogu gaztelera baiño beste izkuntzarik ikusten.


Noz arte baiña orretara «Galdacano» kidekoak?, edo uste dozube ostikoketa zaleen artean ez-dabela euskaltzaleak sartu bear? Naikua itsutasun andia eurona!

BASA-JAUN

INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

Mokoroa Aita'rekin

Alkar - Izketan II



6) *Olango gauzarik etxako edonori aurpegira jaurtiten. Baiña ez dot uste zuk okerreko aldera artuko daustazula urrengo itauna:*

Saussure'n eta Vendryes'en idaztietan barrena ibilkeran, ez ete zara lartxu kutsutu (nastu) masoi-usaiñeko ei dan Durkheim'en soziolojiagaz? Alango zeozer atara geinkela dirudi 397'gn. orr. Mitxelena'k diñonetik.

«Ur garbia nai danean... iturrira!» Ala zan len, eta ala da oraindik-ere, beren eta besteren izen onari bear bezelako lotsa diotenen eskola-bidea.

Ur garbi zalea bazera, ongi etorri; eta eskerrik asko zure galdera zintzoari. Gizabidez datorrenari etzaio arrera txarrik egiten jende prestuen artean; eta alegiñak egingo ditut nikere zure jakin-naiari alik garbien erantzuten.

Urte-mordoska bat ba da —ogeita-bostetik gora bai—, Durkheim orren soziologiaz jardun-bearra izaten nuala seigarren maillako batxiller-gaiekin, Txile-ko gure ikastegi batean. Emen ditut oraindik garai artako liburuak.

Baiña, egia dan bezela esateko, maisu frantses orren izenaz beraz zearo aztuta bizi nintzan aspaldi. Ez nintzan geiagoere oroituko, Mitxelena-ren bekaiñekoak ernaitu ezpalit burua bat-batetan. (Ezta arpegia gorritzeraiñokoa izan; baiña ubeldu ona utzi dit adiskideak, txantxetan edo benetan... Arako-ark, antziña batean, arako beste ari, makilla dantzatzera zijoakiola ikusita esan omen ziona erantzun bearko nik orain, aopetik bederen eta griegoz... AGUR-eko amar lagunek ez ulertzeko eran: **«Pátaxon mén, ákouson dè»!**)

Aundiagoa esango dizut oraindik: ezta Saussure-n eta Vendryes-en liburuak-ere (maiz eta arduraz irakurriagatik) etzidaten egundaiño gogora ekarri Durkheim-en «pentsabiderik»! Masoi-usairik-ere ezta, sudurretara! Nere buru txaldana!... Au guztia zabal-zabal aitortzen lotsagarri izan diteke bat-edo-baten ustetan. Baiña, izatea du, nere ajolagatik! Lotsaizun ori gora-beera, eztiot len baiño kaxkarrago iritziko nere buruari, ispilluaren aurrean.

Izen soiñutsuren bat noizean-bein aitatzeak zenbaiten belarri-etan asko esan nai duala etzitzaidan aztu, liburutxoa idazterakoan. Ala-ere, **izen-dunaren arrazoiai** kontu geiago egitera oitu ninduten gazte-denborako maisuak, beste ezeri baiño. Arrazoi bakoitzari bere pixua eta neurria artzera, esan nai det. Eta, arrezkeroztik, berdintsu zait Durkheimena izatea, naiz Angoaneko Praxku-rena izatea iritzi bat, iritzia bera arrazoiarekin erabat ondo datorrena danean. Baita burutik beatzeraiñoko masoi-tzar batena bada-ere!... Eskuko bost beatzak bezin seguru baitaukat, batari ta besteari gerta lekiekela, utsegitea bezelaxe, zertan edo artan arrazoia bere alde eukitzea, beste askoren kontra!... Ez al daki Mitxelenak, nik beziñ ondo, zer mutil yayoa zan San Tomas Aingerua, bere **Summa Theologican** bertan Aristoteles baten itzak kupira-gabe jasotzen, beren jentill-usai ta guzti?

Nere maisu zar aiei nere liburu koxkor au erakusteko gaiean gertatu izan banintz, beste gauza aundirik eztet jakingo baiño, bat-auxe ondo dakit: aetakorik bat-ere etzitzaidala ortik eta emendik zirika asiko, «nongo eskolatakoak ziruditen nere iritziak» edo «nori ikasiak ote nituan irakurleentzako argibideak». Iritziai berai eta argibideai berai artuko zien, banan-banan, beren pixu ta neurria, gaiñerako ele-meleak aldebat utzirik.

Etzegoan gaiñera iñongo maisuren argi berezi bearrik arazo au garbitzeko. Edozein irakurle zentzudunen bururakoa da nere liburua, eta lasai irakutzea beste laguntzarik eskatzen eztuana, edozein buru argitan sartzeko.

Masoi-usaiaren kontua bere-ortan utziko degu, lena berritzen ibilli gabe. Utzi bezaio Mitxelenak-ere pakean iñoren fedeari. Fedearen aldetik, lau kontu-ortzaille izan ditu liburuak, Elizak legez eta bidez jarriak. Eta naikoa da oraingoagatik. Bigar edo etzi boskarrenaren premiarik sortuko balitzere, ezta berdin egiteko au izkuntzalariena; eta, gaurko itxuraz, urruti dago oraindik Mitxelena-ren txanda. **Ne sutor supra crepidam!**...

7) *397-398'gn. orr.: «Hizkuntza guztiak aldatzen dira, eta ez dira berez aldatzen: hiztunek eta idazleek aldatzen dituzte.—Guztiok, jabe garenez, aldatzen dugu hizkuntza, nork gehiago, nork gutiago: A. Mokoroak, nik eta aldameneko Peilok.—Guztiok dugu bada hizkuntza geure kabuz aldatzeko eskua ez ezik, aldatzeko kemena era bai.—Muga-kontua da funtsez: ea nola eta noraino aldatzeko dugun esku eta indar».*

Zer diño A. Mokoroak onetzaz?

Zer diñodan?... Lengoan esaten asi, ta bukatu-gabe gelditu zitzaiguna: obe izango zuala Mitxelena bezelako batek presakaegi ibilli gabe, liburu txiki ori lasai irakurri arte ixilik egon; okerreko eztarritik joan zaiola-edo orrelako zerbait iñork pentsatu eztezan.

Neronengandik asita, gaurko euskaldun askori ondo letorkiguken burubide zuzen bat utzi zigun Inazio gure Patroi aundiak, Gogo-Jardunetako bere liburu bikaiñean. Nerea baiño samurragoko euskerara itzulita dakar bera D. Luis Eguia adiskide ta apaiz tolosarrak, gogoan artu nai duanarentzat. (**Ejercicios Espirituales de S. Ignacio de Loyola,** versión vasco-castellana por Luis Eguia Rezola, 16-gn. orr):

«Egitako kristau onak lagun urkoaren esana, errezago ontzat artzen du, txartzat baño. Ontzat iritzi ezin duanean, begira beza ark nola artzen duan; eta oker ariko balitz, erakutsi bezaio maiteki nola dan. Eta, ori naikoa ez bada, egiñal egoki guziak egin bitza arek ondo pentsa dezan, eta orrela salbatu dedin».

Mitxelenak-ere aintzakotzat artzen badu burubide au, biontzat mesede! Iñolako esturasunik eta goganbear gaiztorik gabe irakurriko du liburua; eztu bertan arkituko neri egotzi dizkidan gauza batzuen aztarrenik; jarri ditudanak eztitu berriz artuko auntzak adarrak dauzkan aldera; eta akabo, alde ortatik beintzat, gure arteko sesio-bideak! Ez nuke besterik nai.

Nik eztet sekula pentsatu ez esan, izkuntzak **berez** aldatzen diranik. Nere aotik ezta iñoiz atera, euskal-eskolari oraingoz ikusten diodan ibilbidetik **irten-gabe-ere gure izkuntzak bizirik iraungo duanik.** Noiz ta non esan det nik, «iñork eztuala menderen mendetan (euskerari) deus aldatzeko baimenik izango?» Noiz eman det nik orrelako gauza bat jalki-arazteko biderik?... «Nuestra lengua es un bien común, etc.», esan dedalako, zeiñ irakurle leialek bota lezazkiket beraz arpegira, Mitxelenak sortu dizkidan erru txarrak?

«Guztiok omen degu izkuntza geure kabuz aldatzeko eskua ta kemena...» Ajolakabe batzuen ausardia noraiño iritxi dan beiñipein, begien bixtan dauka itsu eztagonak! Eta... artzai gorriak beren ogipeko ta zakurrekin, arri ta makill, beste noraiño eraman nai luteken artaldea, nik ez beziñ ederki dakite onezkero gure bazterren berri-jakilleak: «Euskera hizkuntza ofizialtara jaso, **hizkuntzaren atzerapen kulturala aurreratu, ezberdintasunak gaindiatu, ta halakorik sortzen duen asentu oro gauzaeztandu...»** (Begira, joxe azurmendi-ren liburu trinkoan, 271'gn. orr.—1971).

«Terapeutica bipolarra»-rena baiño biurriago iritziko diote «auntz-euskera» orri Euskara Batua oraindik etxekotugabe daukatenak. (Bipolarra-renaz bixigu-kume zororen batzuk ekarri omen litezke amura. Beste orrena euskaldunen euskeraz jarriko banu, exkalu begibakar bat-ere ez luke arrapatuko gure erreketan arrantzalerik trebeenaren garrangak). Baiña zantzuan gaudenok ba dakigu orain, nondik-norakoak diran aspaldi ontako aize zakar oriek...

Dana dala. Dagoaneko, damutu ote zaizkio Mitxelena-ri, orain amabi urte berak irakatsitakoak?... **«Izkuntzaren legeak eta ereduak, bide zuzenetik ibilliko bagera, eztu egon bear gure baitan, naierara alda dezagun: gugandik kanpo eta gure gaiñetik baizik... Gu gera izkuntzari makurtu bear gatzaizkionak, ez izkuntza guri, gogoak ematen digunean eta gogoak ematen digun bezala. Obe genduke euskerak maitasun gutxiago eta begiramen geixeago jasoko balu gugandik»** (EGAN, 1960, 3-4).

Ao batean bi mingaiñ al ditu Mitxelenak? Ala guk eztegu zillegi geure betiko iritziari eustea?

Bere jarraitzaillerik zintzoenetako batek-ere, bere idazlanen aukeratzailleak, Patxi Altunak berak, zer jarri dio orain-txe, irarkolatik atera-berria duten liburu lodi ortan, itzez itz?... **«Hizkuntza —edozein hizkuntza—, den bezalakoa da, eta ez du inork zilegi bere kabuz eta taxuz direnetik direnetik aldatzea».** (54'gn. orr)

A. Patxik (jesuita eta jesuita azpeitiarra dan aldetik) artu-eman aundia izango du, iñondik-ere, Loiola-ko gure Santuarekin. Ea bien artean lortzen diguten Zerutik, batzuoi eta besteoi, inpernuko kea diruditen laño beltz oek urratu ta uxaturik, elkar obeto ikusteko ta aditzeko falta zaingun Argia: zeruko argi, egietakoa!

—Bota orain, Xabier, irugarren itauna, luzeegia ezpada beintzat!...

—Gaur be berba asko eraso dautsut, eta beste itaun biak urrengo baterako itxiko doguz, ondo baderitxazu.

—Nai dezun bezela. Ez gorde kolkoan ezer, eta etorri lasai, derizkiozunean.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

ATENAGORAS IL DA

Gaur, garrillak 7, goiz aldean, erdi lotan nengoala, albiste batek guztiz itxartu nau ta mingostasun ikarea susmau dot nere barruan. «Atenagoras il da».

Barri onen bildur nintzan antxiñatik, gizon ori oso zaarra zalako. Bera zan Ortodoxoen Patriarka nagusia, bigarren Erroma eritxon Bizanzio'ko gongotzain edo Aita Santu bezela. Barrutik maite neban gizon ori, Jainkoaren egizko gizona zalako.

1960'gnean, abade mordoxka batzuk batera, Istanbul'eko Fanar deritxon etxean (Batikano bat bezela) ikustaldia egin geuntsan: Soin luze ta mardudulduna bera, ta bere gerriraiñoko bizar urdin luzeagaz; bere begirakun maitagarriagaz, ta bere abots lodi ta soiñutsuagaz, oso atsegingarri ta apala gizon ori. Beragaz, iru bat ordulaurdeneko jardun garrantzitsua izan genduan.

«Aldi gutxigaz nabil, esan euskun, baiña zuek erromatar elizaren abadeak zarealà jakitean, beste zer-egin guztiak alde batera itxirik, neure lan gelan artu zaituet».

Bere izketan eta bere eretxietan Juan XXIII'aren antz aundia artu geuntzan. Iragarrita dagoan Batikano Batzar Nagusira joango zara? galdetu geuntzan, eta Berak: «Ortodoxoak, Rodaz ugartean dogu laster batzar bat, eta antxe erabagia artuko dogu orretzaz. Kristauok ain bananduta gagozanik, ez dot uste: Kristo bat, Andra Mari bat eta siñismen bat ditugu; guk geure liturjia ta oitura berezi batzuk ditugu, ta Erroma'ko elizagaz alkartuteko, orreik galdu bearrik dagonik, ez dot uste». Maitagarria oso gizon santu orrek egin euskun txera alai ta zintzoa.

Egun aretan poz-pozik egoan, Agia Sofia maomatarrak Mezkita biurtu eben antxiñetako eliz kristau ederra, ostera kristau museo egitea lortu ebalako.

Gizon aundi onetan itxaropen aundia ipiñita geunkan, ba, bere bitartez Ortodoxo eliza Erroma'ko elizagaz laster alkartuko zalakoan gengozan. Berak, Jerusalen'en asita, bein baiño sarriagotan, Paulo Aita Santuagaz alkartasunaren bideak lautu ta leunduteko, alkar-izketak izan ebezan. Uste dogu, Juan XXIII'agaz alkarturik, Goiko Aitari otoi beroa egingo dautsala Kristau guztion alkartasunaren alde. Alakartasun ori ez da erreza, ia milla urteetan banadurik gagozelako, baiña Juan XXIII, Paulo VI eta Atenagoras bezelako Eliz-gizonakaz, eta Jaunaren laguntasunagaz, lortu leikeena da.

Guk, gure aldetik, Atenagoras'ek, Istanbul'en, bera lako jarraille bat izan dagian, otoi dagigun, eta orrela lotsagarria dan kristauon banandute au ainbat lasterren amaituko da.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

AGUR

III URTEA
51 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - DAGONILLA - 26

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

JATETXEAK

Idazle iseka-zaleak ugari izan dabez igaro dan gizaldian España'tarrak. Euren artean ospetsua Mariano José Larra. Onen eztenkadak zorrotzak eta mingarriak ziran bere denporetan. Eta bere iseketarako gai lez noizean bein jatetxeak artzen ebazan, eta batez be euretan sarri aurkitzen eban zikinkeria gogoratzen eban.

Aspaldion gure jatetxeak asko aurreratu dira eta Euskalerri'ko jatetxeak, ipar-aldean eta egoaldean, Europa'koen maillara eldu dirala esan geinke. Gitxienez ibiltariak ugari dabiltzan erietan ostatuak eta jatetxeak ederrak izaten dira, garbiak eta janari ondo gozoak aurkezten dabezanak.

* * *

Euskaldunak jatun onak garala daukagu entzutea. Eusko-sukalkerea gizadian ospetsuenetarikoa dogu. Eta beti jatun onak ba'gara, ibilteak egitera urteten dogunean beti obetotxuago jaten dogu, egunoro etxean baiño obetoago beintzat.

Ez dogu esan gura jateko bizi garala, baiña bai biziteko ondo eta ugari jaten dogula.

Gure denporetan jatekoak gertatzeko erak asko aztertu dira eta, batez be, gizonak ez loditzeko, ez gizentzeko arduratzen dira. Orretarako jatekoen artean aukerapena egiten dabe. Euskalduna ez da orretan arduratzen, baiña gure artera be etorri da oitura ori. Uste dot osasungarria izango jakula.

* * *

Jateko orduai begiratu ezkero, gure Erria zati bitan dago. Au be beste gai askori buruz jazoten dana da. Iparraldekoak Prantzia'ko orduak ditue eta egoaldekoak España'tarrenak. Iparraldean, esaterako, eguerdiko amabiak ezkero laster bazkaltzen dabe eta ordu bietan ba'zoaz, berandu dala esango dautzue: Trop tard, monsieur! Egoaldean, ostera, amabietan ba'zoaz, goizegi izango da eta ordu bietan sasoe ona. Baiña jatetxeko jauna zurra danean maia edozein ordutan gertatuko dautzu.

Jaten onak ba'gara euskaldunok edaten ez gara makalagoak. Gure edatetxeetan edontziak ugariegi goratzen dira. Eta ba leiteke ortik gure Erriarentzat kalte aundiagoak etortea. Lar edaten dogu. Bear ez dan orduetan edaten dogu. Esaterako, goizetan, oitura barriai jaramon egiñaz, amarretakorik egin barik, erdi baraurik, zenbat ardau zuri edaten dan gure errietan! Ori bai gure enda sendoarentzat probaketa gogorra!

Eta gero jate orduan ardau baltza ugari. Gero akeita ta txola. Gero, naikoa txola artu ondoren, edari otzagoak... Gorputz sendoak daukaguz geienbat, baiña bai bear be.

* * *

Udaldian, ibiltari goazenean, batez be erri batzutan, jatetxeak beterik aurkitzen doguz. Eta jateko orduan ez gara itxaroten zaleak. Laster irritu jarten gara eta mai-otseiñak entzun bear izaten dabez entzun gura ez dabezanak. Egia esan, zer esan eta gorabera asko izaten dira, baiña obeto orreik akeitagaz batera aztertu. Ez gara, ez, jatekoari itxaroten zaleak. Jan aurrean estura aundia izaten dogu, jan ostean itxaroteko gertu gagoz.


* * *

Ibiltariai eta jatetxeai buruz beste gauza samingarri bat be gogoratu bear dogu.

Gure Errianrentzat kaltegarri ete dira euren ibilteak? Batzutan geu joaten gara erbestera. Ortik ez dot uste kalte aundirik etorri ledikenik. Baiña ainbeste erbesteko gure artera etortea? Au batez be iparraldean, Erriarentzat oso kaltegarri da. Eurak guk baiño askatasun geiago dabe euskaltasuna erakusteko, baiña gogo gitxiago, neure ustez. Biarritz, Donibane Loitzun ta abar, laterri-arteko erriak dira eta euren euskaltasuna galduez doaz. Ba dago an benetako euskal-langilleen bearra.

Udea da. Ezagutu daigun gure Erria nastatu daigun bere sukalkera gozoa, ikertu daiguzan bere jatetxe garbi ta ederrak.

AGUR



Jan, jan; ta ez esan ez dozunik jan!

ASE BIDEA

Lurreko izaki guztiak asetasunaren billa doaz. Penomeno-agerkai au berezkoa danez, betikoa da. Bizi-duna, bizia emongo dautson zerbait edo norbaitegana doa. Zugatzak lur mamiña, euria, aizea ta eguzkia nai ditu. Argi aldera, landara ta zugatzak, oparotsuago agertzen dira. Onarenbilla doaz gauzak mendi egalean. Ez dauke bururik, ez dabe itzik; baiñaegitez, indartsuki, euren bizia asetu nai dabe.

Abereak, errezki igarten dabe bedar oneko zelaia nun dagon. Ona, gozoa, ederra, nai dabe guztiak. Gosearen griña, albait ondoen, asetu nai. Zaldi nai txakurrak berarizko irrintzi ta txerak egingo dautsez esku oneko ugazabei; janari onez ta maitasunez, asetu nai ditue euren urdail eta biotzak. Izateak dakarren egarria ta eskubidea da. Ori dala-ta, kendu eziña da, eskatzen daben janaria emoten ez-jakon bitartean.

Baiña izaki guztien artean bat da gorenengoa: gizona. Ta onen egarriak be gorengoak dira ta euretara joten ez ba'dogu, gure bizia mirriza izango da. Gizona dan legez artuta, onen eskabideei erantzukeran, poza eta bakea izango da buru ta biotzdunaren barruan.

Gizona beste izakietatik bereiztuten dituan puntu aundi biak, adimena ta maitasuna izanik, gizonaren ase-bidea beste gauza ta abereena baiño askoz zaillagoa da. Arri, landara ta abere baiño osoagoak gara. Alde aundia dogu. Alan dira baita, gure gora-berak, askoz garrantzitsuagoak. Gure azkenengo elburua, sarri askotan, norbere jakituriz ezagutzea ez da lortzen ta beste askotan, nai be ez onartzerik, geure ezaupide ain mugarrituak adierazo nai dauskuna besterik.

Era ez-bardiñeko asekeri-zaleak dagoz lurtarren artean. Esaterako; jan ta edan zaletasuna. Janez ase nai izate onek, bere indar oiñarria dauka, ta atan be, sustrai zentzun aundikoa; biziari eustea. Gizon bat ardau ta ogi bage erdi illik dago; gizona ogi, indiar, okela ta arrain zeiagaz, poliki, bizi da. Bizitzaren eskabide legea orniduta geratzen da. Ortik gorako jan-naiak ase-egarri geiago emongo dautsa. Ta era orretan jan aundietara, sarri oitu ezkero, iñoz ez da asetasunik aurkitzen.

Lurrean ba-da beste ase-bide bat beste askorentzat: dirukeria. Gizadiko bizia era ontan zuzenduta dagon ezkero, bizi al izateko dirua bear da. Zoritxarrez, diru orren bearrizanez ta gosearen indarrez, munduan jende larregi ilten da. Askok miseri ortan bizi ta amaitu dabe bizia, diruaren berotasunik eurengan izan barik. Baiña beste askoak be izaten dira gizartean, diruaren diruz, asetu ezin direnak. Pillo izugarriak, ta oraindiño, geiago nai; egarria geroago ta geiago aunditzen doakie edo munduko goratasunagaitik edo diruaren berarenganako maitasunagaitik.

Beste egarri batzuk be ba-dira gizonen artean: goikeria ta askekeria. Goikeriak, sarri ta gogor joten dau askoren buru-biotzetan. Edozelako tresnea ez da. Ta onen atzaparretan jausten direnak, beste askorentzat euren aurkako leoi biurtzen direla dirudie. Mazue jakituriz ta mazue eskuz jake atsegin. Euren inguruan txibitxea darabille, baiña iñoren lepoan. Ori-ta guzti be, ez dira zoriontsu. Ezin izan daitekez, munduak, bestelan, zuzengabekeri legepean bizi bearko leuke.

Onen inguru ta ondoren sortu da baita askekeria be. Onek ere ba-dau bere sustrai onenetakoa. Gizona aske izateko jaioa da. Aske, edozein gaiztakeritik, ta aske gizonak gizonari jarten dautsozan bidegabeko lokarrietatik. Baiña emen be, lar ariñegi galtzen da zuzenbidearen jokerea, ta askatasun ederra zentzu-gabeko askekeri biurtzen da.

Ta emen, aurkituko ete dau askatasunaren poza? Ez noski. Gizartean alkarrekin bizi bear dogunok, askekerizko norberekerietan asten garanean, ordu aretan bertan, batak bestea iñozkorik geien lotzen dogu. Eskubideak, zureak, nireak ta gizartearenak dira, ta bakoitza norbere naietan asten garanean, edozein eratan, ez gizarte ta ez urko-lagunari ez dautsagu lotsarik.

Zer egin bear dau gizonak asetasun egizkoa lortu al izateko? Gizona nor dan, norako dan ta zer egin bear daben jakin. Jatekeri, aundikeri, askekeri, dirukeri ta abarren griñak piztuagaz, gizonak ez dau naikotuko asekeria, ta gizarteari arazo-miñak sortu bai ostera nun-naitik. Bizitzeak eta aurrerabideak ardurea ta lana dakartso gizonari ta notin-personeak, geure baitan, barruan, daroagu betiko biziaren egarria eta egarri ori egizkoa da. Orreri dagokion eran, erantzuten bizi ba'gara, gure ase-naiaren gogoa, ortxe, egiz, betetuko da.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

ITXARTUKO ETE DA IÑOR?

Ortik eta emendik, ixillean pozik dagozenen «buru-zuriketak» ikusirik, neuk be, amua iruntsi dodala aitortu bear dot, eta «Behin batean» ipuin sortea lortu al izan dot irakurtzeko, ez baiña erosi!

Irakurri ondoren, len esandako «buru zuriketa» orreik, barregarriak dira neretzat. Argi ikusten da, lagunari asarre egiñaz agerturik, zabalkundea egiteko asmatuak dirala batetik; bestetik, inguruko errizaleak minduko ba'litzakez-edo, norberaren burua, alkartea ta aldizkariren bat «neutral» agertu. Ez da ez komeni Euskaltzaindia (alfabetatze kanpainarako) edo h-zale aldizkarieri diruz laguntzen dautsen euskaltzaleak itxartu ta konturaturik, onein laguntzea galdu... baiña «buru zuridunak» pozik.

Dana dala, «Behin batean» orri, bein baiña, zabalkundea egitea ongarri deritzat. «Ukronia» izeneko ipuiña bakarrik irakurri dot. Umekeri utsa izanik ez eban zenzura aldetik oztopo larregirik izango... ala estu aldiren batetik «busti barik» iges egin al izatearen ordaintza ete? Lagunak giltzapetuak izan eta azke gelditzearen zorra? Antxiñako lagunak izango dabe, aurki, azterketarako eskubidea.

Ipuin orretan ba-da neuretzat be zerbait, baiña ain arrazista ta eleiz katolikutar agertu nai daben Malaxetxebarria'tar Josu osagilleak (medikua ukronianoentzat) ez du egille orrek aiña zeruko ogirik iruntsi, bere bizitza guztian.

Umeak, edozelako treta dala bidezko, egun batetik bestera aldatzen dira, ta gure ipuinlaria, Bilbo'ko sakristiak busti ondoren, orain, ez dakit nik langille ez diran zelako «proletargoaren» «portavoz» lez agertzen jakun. Iñoiz lanik egin ez eta beste langille batzuk zapaltzen bizi diranen kumeen kontuak!

Baiña nereak alde batera, Ukronia ipuin orretan, Arana. Agirre ta Euskal-errian gure aurretik izan diran errizale on eta zintzo askoren izenak eta oroimena zikintzen dira. Bizi garanok astintzeak... tira... baiña illak?

Gu fazistatzat salatu arren, iñork ez eban gaurko egille onek besteko «zaborkeririk» esan guda osteko egun larri areitan, naizta aren itzak gaur erabilli. Iritziak nabarmenduz, errizaletasuna, ikurriña, erriaren kristau siñesmena ta beste gauza asko irainduz, barre egiten du egilleak. Konturatuko zara irakurle, olakoak idazteko (edo eskribitzeko) ez dagola ausartaegia izan bearrik... baiña, garbi ikusten da, egillearen eta bere angó ta emengo lagunen errizaletasunik eza. Orren ikurriña gorri utsa da... eta naikoa.

Baiña gauzak obeto jakiteko, irakurri egizu ipuin ori; baiña ez erosi liburua! Zelan? Errez, erosle asko dagoz «limboan» bizi diranen artean, euskereari lagundu naian, olako editorialetan eta olako aldizkarietan arpidetuta dagozenak. Eskatu ba, irakurle, olako bateri ta irakurri egiozu berari, askok zabaldu be ez dabez egiten-eta. Orreik irakurri bear dabe liburu ori, errizaleak izanik hachekeriaren asmoa ikusi ez dabenak. Nere lagunen artean asko ditut:... «baiña zergaitik jartzen da Arenaza orrela? esaten dabenak... Ni? Azpiko zurrunbilloa ondo ezagutzen dodalako!

Ezaugarria ba baita, Santiago Apostol Kolegio (klasista?)'ko prailleentzat. Ango gaurko nagusiak errizaletasunik bai ete? Ez dot uste, ez beintzat errapekoa! Baiña euskerea, euskal kulturea ta kondaira ikasten umeak bialtzen dabezan gurasoak bai, duda barik. Ta oneik jakitea komeni, zelako euskerea, zelako kulturea ta zelako kondairea ikasiko daben euren umeak. Gero damu dot esatea alperrikoa izango da.

Eta Unibersidadean? Jesuiten Ikastetxe klasisteak orain, euskal usaiña artu naian, mingaiñez sozialista diran irakasle asko sartu ditu; euren artean «ukronianoa». Beste batzuen artean, Mokoroa Aitari bere «Ortik eta emendik»en jabetasuna lapurtu nai izan eutsenak, ta lengo orregaz nastean dabiltza naizta «neutral» agertu nai izan komeni dan bitartean... Baiña orain urte pare bat «euskaldun» orrek gertatu eban araudia... arranopola! Eskerrak gure Mokoroa jauna, Barandiaran jakintsua baiño zurrago ibilli zala!


Orregaitik ba, guk ez dogu orrelakoen «asmo» onetan siñesten. Olakoen esaerak aintzakotzat artzen dabezanak irakurri begie, arren, «Ukronia». Eta euskera arloan Leizaola'ren senide batzuk, Miren Jone Azurza, Martin Ugalde, Koldobika Mitxelena (ala Lewis labanentzat?) eta abar eta abar. Egilleak, euren arteko bazkide atsegiña izanik, maitagarri izan bear leukezan arein lagunen izen eta gauza asko loitu ditu, kakaztu esango neuke, baiña erderazko esaerak diñoan lez, «umeekin oeratzen dana...» Ala ta be, ez dira danak umeak, eta orain ba-dakigu errizaletasuna nun dagoen... ez beintzat ukronianoen artean!

Baiña, itsu ta gor izan gura dabena baiño...

ARENAZA'TAR JOSU

Mokoroa Aita'rekin

Alkar - Izketan II



6) *Olango gauzarik etxako edonori aurpegira jaurtiten. Baiña ez dot uste zuk okerreko aldera artuko daustazula urrengo itauna:*

Saussure'n eta Vendryes'en idaztietan barrena ibilkeran, ez ete zara lartxu kutsutu (nastu) masoi-usaiñeko ei dan Durkheim'en soziolojiagaz? Alango zeozer atara geinkela dirudi 397'gn. orr. Mitxelena'k diñonetik.

«Ur garbia nai dancan... iturrira!» Ala zan len, eta ala da oraindik-ere, beren eta besteren izen onari bear bezelako lotsa diotenen eskola-bidea.

Ur garbi zalea bazera, ongi etorri; eta eskerrik asko zure galdera zintzoari. Gizabidez datorrenari etzaio arrera txarrik egiten jende prestuen artean; eta alegiñak egingo ditut nikere zure jakin-naiari alik garbien erantzuten.

Urte-mordoska bat ba da —ogeita-bostetik gora bai—, Durkheim orren soziologiaz jardun-bearra izaten nuala seigarren maillako batxiller-gaiekin, Txile-ko gure ikastegi batean. Emen ditut oraindik garai artako liburuak.

Baiña, egia dan bezela esateko, maisu frantses orren izenaz beraz zearo aztuta bizi nintzan aspaldi. Ez nintzan geiagoere oroituko, Mitxelena-ren bekaiñekoak ernaitu ezpalit burua bat-batetan. (Ezta arpegia gorritzeraiñokoa izan; baiña ubeldu ona utzi dit adiskideak, txantxetan edo benetan... Arako-ark, antziña batean, arako beste ari, makilla dantzatzera zijoakiola ikusita esan omen ziona erantzun bearko nik orain, aopetik bederen eta griegoz... AGUR-eko amar lagunek ez ulertzeko eran: **«Pátaxon mén, ákouson dè»!**)

Aundiagoa esango dizut oraindik: ezta Saussure-n eta Vendryes-en liburuak-ere (maiz eta arduraz irakurriagatik) etzidaten egundaiño gogora ekarri Durkheim-en «pentsabiderik»! Masoi-usairik-ere ezta, sudurretara! Nere buru txaldana!... Au guztia zabal-zabal aitortzen lotsagarri izan diteke bat-edo-baten ustetan. Baiña, izatea du, nere ajolagatik! Lotsaizun ori gora-beera, eztiot len baiño kaxkarrago iritziko nere buruari, ispilluaren aurrean.

Izen soiñutsuren bat noizean-bein aitatzeak zenbaiten belarri-etan asko esan nai duala etzitzaidan aztu, liburutxoa idazterakoan. Ala-ere, **izen-dunaren arrazoiai** kontu geiago egitera oitu ninduten gazte-denborako maisuak, beste ezeri baiño. Arrazoi bakoitzari bere pixua eta neurria artzera, esan nai det. Eta, arrezkeroztik, berdintsu zait Durkheimena izatea, naiz Angoaneko Praxku-rena izatea iritzi bat, iritzia bera arrazoiarekin erabat ondo datorrena danean. Baita burutik beatzeraiñoko masoi-tzar batena bada-ere!... Eskuko bost beatzak bezin seguru baitaukat, batari ta besteari gerta lekiekela, utsegitea bezelaxe, zertan edo artan arrazoia bere alde eukitzea, beste askoren kontra!... Ez al daki Mitxelenak, nik beziñ ondo, zer mutil yayoa zan San Tomas Aingerua, bere **Summa Theologican** bertan Aristoteles baten itzak kupira-gabe jasotzen, beren jentill-usai ta guzti?

Nere maisu zar aiei nere liburu koxkor au erakusteko gaiean gertatu izan banintz, beste gauza aundirik eztet jakingo baiño, bat-auxe ondo dakit: aetakorik bat-ere etzitzaidala ortik eta emendik zirika asiko, «nongo eskolatakoak ziruditen nere iritziak» edo «nori ikasiak ote nituan irakurleentzako argibideak». Iritziai berai eta argibideai berai artuko zien, banan-banan, beren pixu ta neurria, gaiñerako ele-meleak aldebat utzirik.

Etzegoan gaiñera iñongo maisuren argi berezi bearrik arazo au garbitzeko. Edozein irakurle zentzudunen burukoa da nere liburua, eta lasai irakutzea beste laguntzarik eskatzen eztuana, edozein buru argitan sartzeko.

Masoi-usaiaren kontua bere-ortan utziko degu, lena berritzen ibilli gabe. Utzi bezaio Mitxelenak-ere pakean iñoren fedeari. Fedearen aldetik, lau kontu-ortzaille izan ditu liburuak, Elizak legez eta bidez jarriak. Eta naikoa da oraingoagatik. Bigar edo etzi boskarrenaren premiarik sortuko balitzere, ezta berdin egiteko au izkuntzalariena; eta, gaurko itxuraz, urruti dago oraindik Mitxelena-ren txanda. **Ne sutor supra crepidam!**...

7) *397-398'gn. orr.: «Hizkuntza guztiak aldatzen dira, eta ez dira berez aldatzen: hiztunek eta idazleek aldatzen dituzte.—Guztiok, jabe garenez, aldatzen dugu hizkuntza, nork gehiago, nork gutiago: A. Mokoroak, nik eta aldameneko Peilok.—Guztiok dugu bada hizkuntza geure kabuz aldatzeko eskua ez ezik, aldatzeko kemena era bai.—Muga-kontua da funtsez: ea nola eta noraino aldatzeko dugun esku eta indar».*

Zer diño A. Mokoroak onetzaz?

Zer diñodan?... Lengoan esaten asi, ta bukatu-gabe gelditu zitzaiguna: obe izango zuala Mitxelena bezelako batek presakaegi ibilli gabe, liburu txiki ori lasai irakurri arte ixilik egon; okerreko eztarritik joan zaiola-edo orrelako zerbait iñork pentsatu eztezan.

Neronengandik asita, gaurko euskaldun askori ondo letorkiguken burubide zuzen bat utzi zigun Inazio gure Patroi aundiak, Gogo-Jardunetako bere liburu bikaiñean. Nerea baiño samurragoko euskerara itzulita dakar bera D. Luis Eguia adiskide ta apaiz tolosarrak, gogoan artu nai duanarentzat. (**Ejercicios Espirituales de S. Ignacio de Loyola,** versión vasco-castellana por Luis Eguia Rezola, 16-gn. orr):

«Egitako kristau onak lagun urkoaren esana, errezago ontzat artzen du, txartzat baño. Ontzat iritzi ezin duanean, begira beza ark nola artzen duan; eta oker ariko balitz, erakutsi bezaio maiteki nola dan. Eta, ori naikoa ez bada, egiñal egoki guziak egin bitza arek ondo pentsa dezan, eta orrela salbatu dedin».

Mitxelenak-ere aintzakotzat artzen badu burubide au, biontzat mesede! Iñolako esturasunik eta goganbear gaiztorik gabe irakurriko du liburua; eztu bertan arkituko neri egotzi dizkidan gauza batzuen aztarrenik; jarri ditudanak eztitu berriz artuko auntzak adarrak dauzkan aldera; eta akabo, alde ortatik beintzat, gure arteko sesio-bideak! Ez nuke besterik nai.

Nik eztet sekula pentsatu ez esan, izkuntzak **berez** aldatzen diranik. Nere aotik ezta iñoiz atera, euskal-eskolari oraingoz ikusten diodan ibilbidetik **irten-gabe-ere gure izkuntzak bizirik iraungo duanik.** Noiz ta non esan det nik, «iñork eztuala menderen mendetan (euskerari) deus aldatzeko baimenik izango?» Noiz eman det nik orrelako gauza bat jalki-arazteko biderik?... «Nuestra lengua es un bien común, etc.», esan dedalako, zeiñ irakurle leialek bota lezazkiket beraz arpegira, Mitxelenak sortu dizkidan erru txarrak?

«Guztiok omen degu izkuntza geure kabuz aldatzeko eskua ta kemena...» Ajolakabe batzuen ausardia noraiño iritxi dan beiñipein, begien bixtan dauka itsu eztagonak! Eta... artzai gorriak beren ogipeko ta zakurrekin, arri ta makill, beste noraiño eraman nai luteken artaldea, nik ez beziñ ederki dakite onezkero gure bazterren berri-jakilleak: «Euskera hizkuntza ofizialtara jaso, **hizkuntzaren atzerapen kulturala aurreratu, ezberdintasunak gaindiatu, ta halakorik sortzen duen asentu oro gauzaeztandu...»** (Begira, joxe azurmendi-ren liburu trinkoan, 271'gn. orr.—1971).

«Terapeutica bipolarra»-rena baiño biurriago iritziko diote «auntz-euskera» orri Euskara Batua oraindik etxekotugabe daukatenak. (Bipolarra-renaz bixigu-kume zororen batzuk ekarri omen litezke amura. Beste orrena euskaldunen euskeraz jarriko banu, exkalu begibakar bat-ere ez luke arrapatuko gure erreketan arrantzalerik trebeenaren garrangak). Baiña zantzuan gaudenok ba dakigu orain, nondik-norakoak diran aspaldi ontako aize zakar oriek...

Dana dala. Dagoaneko, damutu ote zaizkio Mitxelena-ri, orain amabi urte berak irakatsitakoak?... **«Izkuntzaren legeak eta ereduak, bide zuzenetik ibilliko bagera, eztu egon bear gure baitan, naierara alda dezagun: gugandik kanpo eta gure gaiñetik baizik... Gu gera izkuntzari makurtu bear gatzaizkionak, ez izkuntza guri, gogoak ematen digunean eta gogoak ematen digun bezala. Obe genduke euskerak maitasun gutxixeago eta begiramen geixeago jasoko balu gugandik»** (EGAN, 1960, 3-4).

Ao batean bi mingaiñ al ditu Mitxelenak? Ala guk eztegu zillegi geure betiko iritziari eustea?

Bere jarraitzaillerik zintzoenetako batek-ere, bere idazlanen aukeratzailleak, Patxi Altunak berak, zer jarri dio orain-txe, irarkolatik atera-berria duten liburu lodi ortan, itzez itz?... **«Hizkuntza —edozein hizkuntza—, den bezalakoa da, eta ez du inork zilegi bere kabuz eta taxuz direnak direnetik aldatzea».** (54'gn. orr)

A. Patxik (jesuita eta jesuita azpeitiarra dan aldetik) artu-eman aundia izango du, iñondik-ere, Loiola-ko gure Santuarekin. Ea bien artean lortzen diguten Zerutik, batzuoi eta besteoi, inpernuko kea diruditen laño beltz oek urratu ta uxaturik, elkar obeto ikusteko ta aditzeko falta zaingun Argia: zeruko argi, egietakoa!

—Bota orain, Xabier, irugarren itauna, luzeegia ezpada beintzat!...

—Gaur be berba asko eraso dautsut, eta beste itaun biak urrengo baterako itxito doguz, ondo baderitxazu.

—Nai dezun bezela. Ez gorde kolkoan ezer, eta etorri lasai, derizkiozunean.

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

ATENAGORAS IL DA

Gaur, garrillak 7, goiz aldean, erdi lotan nengoala, albiste batek guztiz itxartu nau ta mingostasun ikarea susmau dot nere barruan. «Atenagoras il da».

Barri onen bildur nintzan antxiñatik, gizon ori oso zaarra zalako. Bera zan Ortodoxoen Patriarka nagusia, bigarren Erroma eritxon Bizanzio'ko gongotzain edo Aita Santu bezela. Barrutik maite neban gizon ori, Jainkoaren egizko gizona zalako.

1960'gnean, abade mordoxka bategaz batera, Istanbul'eko Fanar deritxon etxean (Batikano bat bezela) ikustaldia egin geuntsan: Soin luze ta mardudulduna bera, ta bere gerriraiñoko bizar urdin luzeagaz; bere begirakun maitagarriagaz, ta bere abots lodi ta soiñutsuagaz, oso atsegingarri ta apala gizon ori. Beragaz, iru bat ordulaurdeneko jardun garrantzitsua izan genduan.

«Aldi gutxigaz nabil, esan euskun, baiña zuek erromatar elizaren abadeak zareala jakitean, beste zer-egin guztiak alde batera itxirik, neure lan gelan artu zaituet».

Bere izketan eta bere eretxietan Juan XXIII'aren antz aundia artu geuntzan. Iragarrita dagoan Batikano Batzar Nagusira joango zara? galdetu geuntzan, eta Berak: «Ortodoxoak, Rodaz ugartean dogu laster batzar bat, eta antxe erabagia artuko dogu orretzaz. Kristauok ain bananduta gagozanik, ez dot uste: Kristo bat, Andra Mari bat eta siñismen bat ditugu; guk geure liturjia ta oitura berezi batzuk ditugu, ta Erroma'ko elizagaz alkartuteko, orreik galdu bearrik dagonik, ez dot uste». Maitagarria oso gizon santu orrek egin euskun txera alai ta zintzoa.

Egun aretan poz-pozik egoan, Agia Sofia maomatarrak Mezkita biurtu eben antxiñetako eliz kristau ederra, ostera kristau museo egitea lortu ebalako.

Gizon aundi onetan itxaropen aundia ipiñita geunkan, ba, bere bitartez Ortodoxo eliza Erroma'ko elizagaz laster alkartuko zalakoan gengozan. Berak, Jerusalen'en asita, bein baiño sarriagotan, Paulo Aita Santuagaz alkartasunaren bideak lautu ta leunduteko, alkar-izketak izan ebezan. Uste dogu, Juan XXIII'agaz alkarturik, Goiko Aitari otoi beroa egingo dautsala Kristau guztion alkartasunaren alde. Alakartasun ori ez da erreza, ia milla urteetan banadurik gagozelako, baiña Juan XXIII, Paulo VI eta Atenagoras bezelako Eliz-gizonakaz, eta Jaunaren laguntasunagaz, lortu leikeena da.

Guk, gure aldetik, Atenagoras'ek, Istanbul'en, bera lako jarraille bat izan dagian, otoi dagigun, eta orrela lotsagarria dan kristauon banandute au ainbat lasterren amaituko da.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

AGUR

III URTEA
31 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - DAGONILLA - 26

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

JATETXEAK

Idazle iseka-zaleak ugari izan dabez garo dan gizaldian España'tarrak. Euren artean ospetsua Mariano José Larra. Onen eztenkadak zorrotzak eta mingarriak ziran bere denporetan. Eta bere iseketarako gai lez noizean bein jatetxeak artzen ebazan, eta batez be euretan sarri aurkitzen eban zikinkeria gogoratzen eban.

Aspaldion gure jatetxeak asko aurreratu dira eta Euskalerri'ko jatetxeak, par-aldean eta egoaldean, Europa'koen maillara eldu dirala esan geinke. Gixienez ibiltariak ugari dabiltzan erietan ostatuak eta jatetxeak ederrak izaten dira, garbiak eta janari ondo gozoak aurkezten dabezanak.

* * *

Euskaldunak jatun onak garala daugu entzutea. Eusko-sukalkerea gizadian ospetsuenetarikoa dogu. Eta beti jatun onak ba'gara, ibilteak egitera urteten dogunean beti obetotxuago jaten dogu, egunoro etxean baiño obetoago beintzat.

Ez dogu esan gura jateko bizi garala, baiña bai biziteko ondo eta ugari jaten dogula.

Gure denporetan jatekoak gertatzeko rak asko aztertu dira eta, batez be, gizonak ez loditzeko, ez gizentzeko arduratzen dira. Orretarako jatekoen artean aukerapena egiten dabe. Euskalduna z da orretan arduratzen, baiña gure rtera be etorri da oitura ori. Uste dot sasungarria izango jakula.

* * *

Jateko orduai begiratu ezkero, gure rria zati bitan dago. Au be beste gai ukori buruz jazoten dana da. Iparraldeak Prantzia'ko orduak ditue eta egoaldekoak España'tarrenak. Iparraldean, saterako, eguerdiko amabiak ezkero aster bazkaltzen dabe eta ordu bietan a'zoaz, berandu dala esango dautzue: Trop tard, monsieur! Egoaldean, ostera, mabietan ba'zoaz, goizegi izango da eta ordu bietan sasoe ona. Baiña jateeko jauna zurra danean maia edozein ordutan gertatuko dautzu.

Jaten onak ba'gara euskaldunok edaten ez gara makalagoak. Gure edatetxeetan edontziak ugariegi goratzen dira. Eta ba leiteke ortik gure Erriarentzat halte aundiagoak etortea. Lar edaten dogu. Bear ez dan orduetan edaten dogu. Esaterako, goizetan, oitura barriai jaramon egiñaz, amarretakorik egin barik, erdi baraurik, zenbat ardau zuri edaten dan gure errietan! Ori bai gure enda sendoarentzat probaketa gogorra!

Eta gero jate orduan ardau baltza ugari. Gero akeita ta txola. Gero, naikoa txola artu ondoren, edari otzagoak... Gorputz sendoak daukaguz geienbat, baiña bai bear be.

* * *


Udaldian, ibiltari goazenean, batez be erri batzutan, jatetxeak beterik aurkitzen doguz. Eta jateko orduan ez gara itxaroten zaleak. Laster irritu jarten gara eta mai-otseiñak entzun bear izaten dabez entzun gura ez dabezanak. Egia esan, zer esan eta gorabera asko izaten dira, baiña obeto orreik akeitagaz batera aztertu. Ez gara, ez, jatekoari itxaroten zaleak. Jan aurrean estura aundia izaten dogu, jan ostean itxaroteko gertu gagoz.

* * *

Ibiltariai eta jatetxeai buruz beste gauza samingarri bat be gogoratu bear dogu. Gure Errianrentzat kaltegarri ete dira euren ibilteak? Batzutan geu joaten gara erbestera. Ortik ez dot uste kalte aundirik etorri ledikenik. Baiña ainbeste erbesteko gure artera etortea? Au batez be jarraldean, Erriarentzat oso kaltegarri da. Eurak guk baiño askatasun geiago dabe euskaltasuna erakusteko, baiña gogo gitxiago, neure ustez. Biarritz, Donibane Loitzun ta abar, laterri-arteko erriak dira eta euren euskaltasuna galduez doaz. Ba dago an benetako euskal-langilleen bearra.

Udea da. Ezagutu daigun gure Erria txastatu daigun bere sukalkera gozoa, ikertu daiguzan bere jatetxe garbi ta ederrak.

AGUR



Jan, jan; ta ez esan ez dozunik jan!

ASE BIDEA

Lurreko izaki guztiak asetasunaren billa doaz. Penomeno-agerkai au berezkoa danez, betikoa da. Bizi-duna, bizia emongo dautson zerbait edo norbaitegana doa. Zugatzak lur mamiña, euria, aizea ta eguzkia nai ditu. Argi aldera, landara ta zugatzak, oparotsuago agertzen dira. Onarenbilla doaz gauzak mendi egalean. Ez dauke bururik, ez dabe itzik; baiñaegitez, indartsuki, euren bizia asetu nai dabe.

Abereak, errezki igarten dabe bedar oneko zelaia nun dagon. Ona, gozoa, ederra, nai dabe guztiak. Gosearen griña, albait ondoen, asetu nai. Zaldi nai txakurrak berarizko irrintzi ta txerak egingo dautsez esku oneko ugazabei; janari onez ta maitasunez, asetu nai ditue euren urdail eta biotzak. Izateak dakarren egarria ta eskubidea da. Ori dala-ta, kendu eziña da, eskatzen daben janaria emoten ez-jakon bitartean.

Baiña izaki guztien artean bat da gorenengoa: gizona. Ta onen egarriak be gorengoak dira ta euretara joten ez ba'dogu, gure bizia mirriza izango da. Gizona dan legez artuta, onen eskabideei erantzukeran, poza eta bakea izango da buru ta biotzdunaren barruan.

Gizona beste izakietatik bereiztuten dituan puntu aundi biak, adimena ta maitasuna izanik, gizonaren ase-bidea beste gauza ta abereena baiño askoz zaillagoa da. Arri, landara ta abere baiño osoagoak gara. Alde aundia dogu. Alan dira baita, gure gora-berak, askoz garrantzitsuagoak. Gure azkenengo elburua, sarri askotan, norbere jakituriz ezagutzea ez da lortzen ta beste askotan, nai be ez onartzerik, geure ezaupide ain mugarrituak adierazo nai dauskuna besterik.

Era ez-bardiñeko asekeri-zaleak dagoz lurtarren artean. Esaterako; jan ta edan zaletasuna. Janez ase nai izate onek, bere indar oiñarria dauka, ta atan be, sustrai zentzun aundikoa; biziari eustea. Gizon bat ardau ta ogi bage erdi illik dago; gizona ogi, indiar, okela ta arrain zeiagaz, poliki, bizi da. Bizitzaren eskabide legea orniduta geratzen da. Ortik gorako jan-naiak ase-egarri geiago emongo dautsa. Ta era orretan jan aundietara, sarri oitu ezkero, iñoz ez da asetasunik aurkitzen.

Lurrean ba-da beste ase-bide bat beste askorentzat: dirukeria. Gizadiko bizia era ontan zuzenduta dagon ezkero, bizi al izateko dirua bear da. Zoritxarrez, diru orren bearrizanez ta gosearen indarrez, munduan jende larregi ilten da. Askok miseri ortan bizi ta amaitu dabe bizia, diruaren berotasunik eurengan izan barik. Baiña beste askoak be izaten dira gizartean, diruaren diruz, asetu ezin direnak. Pillo izugarriak, ta oraindiño, geiago nai; egarria geroago ta geiago aunditzen doakie edo munduko goratasunagaitik edo diruaren berarenganako maitasunagaitik.

Beste egarri batzuk be ba-dira gizonen artean: goikeria ta askekeria. Goikeriak, sarri ta gogor joten dau askoren buru-biotzetan. Edozelako tresnea ez da. Ta onen atzaparretan jausten direnak, beste askorentzat euren aurkako leoi biurtzen direla dirudie. Mazue jakituriz ta mazue eskuz jake atsegin. Euren inguruan txibitxea darabille, baiña iñoren lepoan. Ori-ta guzti be, ez dira zoriontsu. Ezin izan daitekez, munduak, bestelan, zuzengabekeri legepean bizi bearko leuke.

Onen inguru ta ondoren sortu da baita askekeria be. Onek ere ba-dau bere sustrai onenetakoa. Gizona aske izateko jaioa da. Aske, edozein gaiztakeritik, ta aske gizonak gizonari jarten dautsozan bidegabeko lokarrietatik. Baiña emen be, lar ariñegi galtzen da zuzenbidearen jokerea, ta askatasun ederra zentzu-gabeko askekeri biurtzen da.

Ta emen, aurkituko ete dau askatasunaren poza? Ez noski. Gizartean alkarrekin bizi bear dogunok, askekerizko norberekerietan asten garanean, ordu aretan bertan, batak bestea iñozkorik geien lotzen dogu. Eskubideak, zureak, nireak ta gizartearenak dira, ta bakoitza norbere naietan asten garanean, edozein eratan, ez gizarte ta ez urko-lagunari ez dautsagu lotsarik.

Zer egin bear dau gizonak asetasun egizkoa lortu al izateko? Gizona nor dan, norako dan ta zer egin bear daben jakin. Jatekeri, aundikeri, askekeri, dirukeri ta abarren griñak piztuagaz, gizonak ez dau naikotuko asekeria, ta gizarteari arazo-miñak sortu bai ostera nun-naitik. Bizitzeak eta aurrerabideak ardurea ta lana dakartso gizonari ta notin-personeak, geure baitan, barruan, daroagu betiko biziaren egarria eta egarri ori egizkoa da. Orreri dagokion eran, erantzuten bizi ba'gara, gure ase-naiaren gogoa, ortxe, egiz, betetuko da.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

ITXARTUKO ETE DA IÑOR?

Ortik eta emendik, ixillean pozik dagozenen «buru-zuriketak» ikusirik, neuk be, amua iruntsi dodala aitortu bear dot, eta «Behin batean» ipuin sortea lortu al izan dot irakurtzeko, ez baiña erosi!

Irakurri ondoren, len esandako «buru zuriketa» orreik, barregarriak dira neretzat. Argi ikusten da, lagunari asarre egiñaz agerturik, zabalkundea egiteko asmatuak dirala batetik; bestetik, inguruko errizaleak minduko ba'litzakez-edo, norberaren burua, alkartea ta aldizkariren bat «neutral» agertu. Ez da ez komeni Euskaltzaindia (alfabetatze kanpainarako) edo h-zale aldizkarieri diruz laguntzen dautsen euskaltzaleak itxartu ta konturaturik, onein laguntzea galdu... baiña «buru zuridunak» pozik.

Dana dala, «Behin batean» orri, bein baiña, zabalkundea egitea ongarri deritzat. «Ukronia» izeneko ipuiña bakarrik irakurri dot. Umekeri utsa izanik ez eban zenzura aldetik oztopo larregirik izango... ala estu aldiren batetik «busti barik» iges egin al izatearen ordaintza ete? Lagunak giltzapetuak izan eta azke gelditzearen zorra? Antxiñako lagunak izango dabe, aurki, azterketarako eskubidea.

Ipuin orretan ba-da neuretzat be zerbait, baiña ain arrazista ta eleiz katolikutar agertu nai daben Malaxetxebarria'tar Josu osagilleak (medikua ukronianoentzat) ez du egille orrek aiña zeruko ogirik iruntsi, bere bizitza guztian.

Umeak, edozelako treta dala bidezko, egun batetik bestera aldatzen dira, ta gure ipuinlaria, Bilbo'ko sakristiak busti ondoren, orain, ez dakit nik langille ez diran zelako «proletargoaren» «portavoz» lez agertzen jakun. Iñoiz lanik egin ez eta beste langille batzuk zapaltzen bizi diranen kumeen kontuak!

Baiña nereak alde batera, Ukronia ipuin orretan, Arana. Agirre ta Euskal-errian gure aurretik izan diran errizale on eta zintzo askoren izenak eta oroimena zikintzen dira. Bizi garanok astintzeak... tira... baiña illak?

Gu fazistatzat salatu arren, iñork ez eban gaurko egille onek besteko «zaborkeririk» esan guda osteko egun larri areitan, naizta aren itzak gaur erabilli. Iritziak nabarmenduz, errizaletasuna, ikurriña, erriaren kristau siñesmena ta beste gauza asko irainduz, barre egiten du egilleak. Konturatuko zara irakurle, olakoak idazteko (edo eskribitzeko) ez dagola ausartaegia izan bearrik... baiña, garbi ikusten da, egillearen eta bere ango ta emengo lagunen errizaletasunik eza. Orren ikurriña gorri utsa da... eta naikoa.

Baiña gauzak obeto jakiteko, irakurri egizu ipuin ori; baiña ez erosi liburua! Zelan? Errez, erosle asko dagoz «limboan» bizi diranen artean, euskereari lagundu naian, olako editorialetan eta olako aldizkarietan arpidetuta dagozenak. Eskatu ba, irakurle, olako bateri ta irakurri egiozu berari, askok zabaldu be ez dabez egiten-eta. Orreik irakurri bear dabe liburu ori, errizaleak izanik hachekeriaren asmoa ikusi ez dabenak. Nere lagunen artean asko ditut:... «baiña zergaitik jartzen da Arenaza orrela? esaten dabenak... Ni? Azpiko zurrunbilloa ondo ezagutzen dodalako!

Ezaugarria ba baita, Santiago Apostol Kolegio (klasista?)'ko prailleentzat. Ango gaurko nagusiak errizaletasunik bai ete? Ez dot uste, ez beintzat errapekoa! Baiña euskerea, euskal kulturea ta kondaira ikasten umeak bialtzen dabezan gurasoak bai, duda barik. Ta oneik jakitea komeni, zelako euskerea, zelako kulturea ta zelako kondairea ikasiko daben euren umeak. Gero damu dot esatea alperrikoa izango da.

Eta Unibersidadean? Jesuiten Ikastetxe klasisteak orain, euskal usaiña artu naian, mingaiñez sozialista diran irakasle asko sartu ditu; euren artean «ukronianoa». Beste batzuen artean, Mokoroa Aitari bere «Ortik eta emendik»en jabetasuna lapurtu nai izan eutsenak, ta lengo orregaz nastean dabiltza naizta «neutral» agertu nai izan komeni dan bitartean... Baiña orain urte pare bat «euskaldun» orrek gertatu eban araudia... arranopola! Eskerrak gure Mokoroa jauna, Barandiaran jakintsua baiño zurrago ibilli zala!

Orregaitik ba, guk ez dogu orrelakoen «asmo» onetan siñesten. Olakoen esaerak aintzakotzat artzen dabezanak irakurri begie, arren, «Ukronia». Eta euskera arloan Leizaola'ren senide batzuk, Miren Jone Azurza, Martin Ugalde, Koldobika Mitxelena (ala Lewis labanentzat?) eta abar eta abar. Egilleak, euren arteko bazkide atsegiña izanik, maitagarri izan bear leukezan arein lagunen izen eta gauza asko loitu ditu, kakaztu esango neuke, baiña erderazko esaerak diñoan lez, «umeekin oeratzen dana...» Ala ta be, ez dira danak umeak, eta orain ba-dakigu errizaletasuna nun dagoen... ez beintzat ukronianoen artean!

Baiña, itsu ta gor izan gura dabena baiño...

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

MITXELENA'REN IRITZI BATZUK III

(Alaz guztiz ere, Mitxelena h-zaletu eginda, eta bere liburu berri ontan idazkera moldakaitzagoa *omen darabil.—Irakurleari laguntzearren?).*

32.—Gezurra badirudi ere, ez naiz sekula, oraintsu arte, H-zalea izan. (EGAN, 1970, 1-3).

33.—Zeuden zeudenean datoz berriz (Mitxelenaren idazlanak) liburuxka honetan, hutsik ere zuzendu gabe. Itxura, noski, aldaturik dakarte. Ortografia behialakoa baino moldakaitzagoa, jakina, dakizkizuen arrazoiengatik; mintzaera ere, zenbait axaleko puntuan bestelakoatua. (—Arantzazuko erabakiengandik—)... Ez dator beti bat bere buruarekin, ezta ere azken-azkeneko soinekoz jantzirik. Ez dut uste gehiegi ardura duenik. Ni ez naiz eredutarako jaioa, eta hoberik aurki dezake irakurleak bazterretan. (Mitxelenaren idazlan hautatuak, 1972).

34.—Bulartu bearrean, atzerazi nai ote ditugu, gogoa galeraziz? (—Irakurleak? Idazleak?... gure idazkera gogorregiagatik...—) (EGAN, 1957, 1-2).

Euskal-diasistema ori, bateratu egin bear omen da alegiña.—Batasuna, ordea, ezin lortu omen da, nai litzaken bestean.—Ez omen litzake gutxi izango euskalki bakoitza berdintzea.—Iñorena eztan Euskera Baturik ez luke nai.

35.—Inorena ez den euskara baturik ez nuke nahi; guztiona behar genuke; eta ezinean, zenbaitena bederen, ahalik eta gehienena. (Mitxelenaren idazlan hautatuak, 1972).

36.—Euskera ez da oraingoz sistema bat; diasistema bat baizik; eta diasistema horren itxura batera heldu behar dugu, gero mamia batuko badugu.

Zenbaitetan ez dago oraingoz deus egiterik. Beste zenbaitetan, euskalkien arteko batasuna egitea gaitz da; horretarako behar genituzkeen istudioak ez baititu inork egin.

Aditz-sistema, denboren balioa, ez da berdina alde guztietan, berdintsua izan arren. Gai horretan ordea, itsu itsuan gabiltza, nor bere euskalkitik irten bezain laster.

Aditzean oraingoz ez zait iruditzen batasuna irispidean dagoenik. Forma kontu hutsean ere alde gahiegi dago batetik bestera: batzekotan, berea utzi beharko luke askok, amore eman eta besterenera makurtu.

Gogoan hartu eta eduki behar dugu, nahiz izenaren deklinabidea argi xamar dagoen, istilu larriak ditugula oraindik izenorde edo izen ordainekin: *Hau, hori, hura* eta ondorengoak aipatuko ditut, gai honetan dauzkagun nahasketen oroikarri.

Batasuna behar genuke ordea, euskalki bakoitzaren barrenan behinik bein. Hori gure esku dago. (EUSKERA, 1968).

Euskaldunok, orratio, ezaugarri nabarmen au omen degu munduan: «nai izatea aski dala uste, gauza bat aurrera ateratzeko». Bilbo'n batez ere. Bilbo'n altxa zuten burua orrelako ameslariek. (Euzkeltzale Bazkuna'koen «EUZKEREA» aitatzen du lekuko).

37.—Euskal izaerak badu ezaugarri nabarmena: zinetan eta benetan nahi badugu, nahimen hutsez erdiets dezakegulako ustea hezur-muinetaraino sartua dugu. Zenbait aldiz onerako, zenbaitetan kalterako. Ni, damurik, ez nauzue euskaldun horietakoa, Barojaren harako «mistifikatu» haietakoa baizik.

Badirudi, guztiarekin ere, hobe genukeela indarrak neurtzen saiatu, borrokan hasi baino lehen... Horrelako usteek eta sinesteek zenbait lekutan bestetan baino fruitu naroagoa dakarte. Bilbaon argitara ohi zuten «Euzkerea»... (Mitxelenaren idazlan hautatuak, 1972. Azken ordukoak).

Bere iritzia ematea besterik eztu egin nai M'k. Agintzeko eskurik ez gogorik eztu.

38.—Ez naiz karismaduna, eta oker egon naiteke. Deus agintzeko, ez dut ez eskurik, ez gogorik ere. Neure iritzia agertzen dut, den bezalaxe. Eta barka, agertzekoan zakarkeriarik izan bada. (Mitxelenaren idazlan hautatuak, 1972. Azken orduakko).

Bortxarik ez luke nai; eta ezta au gogorkeriz eragin diteken gauza.—Ezta teknikoen egitekoa ere (eta izkuntzalariak ez omen dira tekniko batzuk baizik). Euskaltzaindi ezta nor, zein euskalki oiñarritzat artu bear dan erabakitzeko. Euskaltzaindik lengo legeai bear die eutsi, eta ez ortan amorerik eman.

39.—Batasunerako nik ez nuen bortxarik ez indarkeriarik nahi hasi berri hartan, ez du nahi orain eta ez nuke nahi gerorako. Bestek bestelako usterik eta asmorik badu, har beza bere bizkar datorkiokeen erantzunbeharra. (Mitxelenaren idazlan hautatuak, 1972. Azken ordukoak).

40.—Ni ez naiz teknokraten aldekoa: deus baldin banaiz, etsai amorratua nauzue. Erabakiak, nik uste, ez dituzte inolaz ere teknikoek hartu behar, politikoek (hitz honek izan dezakeen adierarik zabalenean) baizik; herriak horretarako hautatu dituen politikoek, noski.

Teknikoen lana, erabaki horiek ahalik errezen, lasterren eta ekonomikoen, nolarebait esan, eragitea da. Hizkuntzalaria ere hizkuntza-gaietan ez da tekniko bat besterik. (EGAN, 1970, 1-3).

41.—Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz behintzat, oinarritzat zein euskalki hautatuko den erabakitzeko. (EUSKERA, 1968).

42.—Euskera bizi delarik eta euskera bizi deino, ez du beti batean irauten eta ez du iraungo. Lege zaharrei egin-ahalean eustea da, noski, Euskaltzaindiaren eginbidea, eta ez du amorerik emango ezinbestean baizik (EUSKERA, 1968).

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

«SASI-BATASUNA»RI BURUZ

Txikia eta mamitsua. Txikia eta burrukalaria. «Biologiaren mitoa» ezerezten duan liburuxka. Beste gauz asko ere ba-da Labayen euskaltzain jaunak eskeintzen digun liburuxka. Atsegiñez irakurtzen dana. Baiñan batez ere ba-da ekaitz beltzean nunbaitetik datorkigun aize osasungarria. Baita esan arazten diguna batek baiñon geiagok esan didatena: «ba-uan ordu norbaitek ausarki eta jakintsu gauzak bere tokian ipintzea, «H»ren arazo madarikatu au argitzea».

Nere aurre-lerro auek irakurri duanen batek baiñon geaigok, sumatzen asiak ditezte, nere idazki oni, alegia, alako igurtzi-emate usaia. Ez bada, ez det orrelako asmorik, Baizik bestalde. Ara zergatik.

Labayen jaunak «mito» biurtu diran jaun ba' baiñon geiago astintzen ditu bere idazkian. Eg' garratzak esan ere bai. Arrazoi latzak geienetan. baiñan zenbaitetan, gutxitan arrazoi aul batzuek ere. Esan nai det geienetan berarekin nagoala, ez baiñan oso-osorik. Jipoitzen ari danean, eta ez dago gaizki merezi duana jipoitzea, erabateko jipoia bear du izan. Eta ontaz astindu nai nuke Labayen jauna.

Euskera erri guztiarena da, ez soillik «intelektualena» (?). Euskera ez zuan «intelektualak» asmatu, erriak baizik. Eta erria ere ba-gaituzu langilleok, bearrez edo bearretik bizi geranok. Eta ara emen koska! Sartu nai diguten «batu» orretan nor gelditzen da galtzaille? Erria. Langillea. Eta arrazoi onetxek iges egin dio Labayen jaunari. Labayen jauna, aberastasun egoeran gu baiñon obekiago dagoalako ez zan oartuko, noski, langilledia dala «batu» orrekin geienik galduko duana. Bera, egia esan, «batu» orren aurka azaltzen da, eta ustegabean arazo onetan langilleen aldeko. Baiñan zergatik ez jipoitu, asi dan ezkeroz, langilleen kaltetan dabiltzan azaluts oiek?

«Batu» oni buruz dabillen itxutasuna ez da ez arrigarri. Bere sortzailleak ez dute ikusi nunbait, geientsuenak, gu langilleok daramagun zama gure semeen eziketari buruz. Ez dakite nolatan gure aoari kendu bear izandu diogun ogi zatia, orrekin gure semeek gure eziketa baiñon obeagoa izan dezaten. Zenbat kostatzen diran eziketak...

Aita Villasante ta beste frailetxo batzuek, ez dute nabaitu beren sendiaren bearra, gutxiago besterena, izan bai-dute «beka» bat beren karrera bukatzeko eta konbentuko eltzekari beroa, baserritarren euskeran eskatu eta sortua, sabela betetzeko. Gutxiago apaizgai izan diran batzuek, gaur batuzale agertzen diranak, ez bai-zaiote ere faltatu dioguna, naiz eta gero eskergabe aldegin, dirua eman zion erriari par egiñik. Ez dute ere ikusi, gaur beren karrerak dituzten batzuen-batzuk, nork lagundu izan zutelako eta, gaur, panpantxo bizirik ametsezko «teorietan» murgiltzeko ainbat asti dutelako. Danak ez dira orrelakoak, baiñan auen artean daude batuaren profeta geienak.

Auen artean zenbait ez dira konturatzen, eta ontan ez dute jarrairu nai Errusi baten ikasbidea, izkuntz, bat zailtzea, ortografi bat naspillatzea dirua eta denbora alperrikaltzea dala. Auxen dala aurrera egin bearrean atzeraka egitea. Esate baterako, zergatik emen komunistak alperrikako izkien aldeko Errusia'n oek ken dituztenean?

Irakasleak, zailtasun ontan denbora galtzea, kaltegarria da. Ordu eta egun oiek danak beste irakasketa batzuetan erabilli bai-ditzateke. Baiñan aurrei denbora gal araztea, okerragoa da. Beste zer edo zer geiago ikasi gabe gelditzen dira. Eta batez ere langille beartsuak ain nekez irabazitako diru betirako alperrikaldua.

Auxe esan bear zien Labayen jaunak. Langilleen aldezle azaltzen diran asko, langilleen kaltetan obetogo ezin zezaketeala jardun, «intelektualak» ez bailuteke luzituko ortografi izkiak ongi ipintzen ez dakitenak ez ba-leude. Eta aurrerakoi edo «progresista» kaskarra dala ortografi bat erreztu bearrean zailtasunak eta esiak ipintzen dabillena.

Frailei, erri-izkera jatorra dala manten-biderako erriari eskatzeko, baiñan bein berea egiñik, utikan baserritarren euskera! Datorrela «intelektualena». Zakurrak ere esker geiago dute! Eta ez izan arritzeko «Larresoro» bezelako bat, eleizgizonak euskararen Jaungoikotzat dutenean.

Eta erritik datorkigun euskera zapuztu eta ankazpiratu nai diguten auek, nolaz mintzatzen zaizkigute Elizak agindutako «lenguas vernaculas»en alde, gure Euskal Errian izkuntz berri bat sortu nai digutenean?

Eta ez goaz emen aipatzera edozein izkuntza latinizatu nai dutenak zer kalte dakarkien izkuntz orri. Emendik pentsa, nolakoa euskerari.

Nik Labayen jaunak bezela, auxe eskeiñiko nioten beren buruak «intelektual» bezela bataiatu dutenei: zortzi edo bederatzi seme azi ta ezkondu, eta langille soil baten lan-saria. Orduantxe, ikastolara joateko orduan, amaituko litzake auen «progresismo» gezurtia, eta orrela azalizeko sela ixar ori. Antziñako bertsolari batek abestu zuana gertatzen bai-zaigu emen:

«.....
Aurrera bearrian
atzera pausua
gaizki asmatutako
ibilitze txorua».

«EUZKO LANGILLE BAT»

GOIZ EDERRA

Ogeigarren mendeko goiz ederra! Bizkaia'n edo Euskalerrian esan gura dot. Bilbo'tik ur dagoen erri batean nago. Orduntxe erderea indarka ta indarka, Euskerea basterreratzeko ta onen lekua berak artzeko Euskalerrian. Emakume arin batzuk laguntzen eutsoen egite txar orretan. Erria txikia danean, iru edo lau emakume besterik ezpadira be, ondoria ta kalte andia ekarri dagikee...

Errian, nozbeinka, yaun batzuk agertu oi ziran, Euskerearen alde lan egiteko asmotan, Euskereari euskarria emon guraz. Emen eta an, onei ta arei esaten eutsen: «Euskeraz egin, Euskeraz... Euskerea besteak baiño politagoa da. Ta ganera geuron Euskeraz ez oi dago biraorik, be. Beraz Euskeraz egin, Euskeraz...

Bilbo'tik etozen abandotarrarenak oi ziran. Ta gaur erri batera ta bier bestera, Euskerearen azia errietan ereiten ebiltzen. Ta areik egiñiko lanaz, Euskerearen landarea erne ta indartu zan garai artako maltzurkeri bako gizartearen biotzetan. Gure bizitzaren goiz ederra...! Areik, bai, areik ibiltzen ziran; ta areik lan egin oi eben gartsuki ta biotzez...!

Besteak barriz, ezkerrak, erdikoak, eskumarrak, ezer bez...! Ta orain zer pena emoten dauen, gaurko euskaltzale batzuk arein aurka esan eta esan debiltzela ikusteak...! Neuri olango euskaltzaleak, euskaltzale baiño, leenago euren buru-zale direla irudi oi yataz...!

«Kamiñazpi» adiskide, zuk idatzi dozu azkeneko «AGUR'en: «Beraz gaurko euskaltzaleak euskeraren izenean lengo abertzaletasunaren aurka ibiltea bidekokeri aundiena da... lengo euskaltzale talde bat erriaren aurrean txarto ipintea alegindutea, euskeraren onerako lana danik ez dot uste...» (AGUR, 46 zenbakia, 2'gn orrialdea).

Egi galantak dira orreik, irakurle. Ta idazki osoa lerro guztietan iritzi eder, mamitsuz ta egiazkoz beterik dator. «Kamiñazpi» adiskide, yarrai olan, gaurko gazteai egiak esaten ta irakasten. Zugaz naukazu.

MOTXOGANE

GAZTE ERANTZUNA

«BERRIZTARRA»RI

Ez dakit zu nor zarean, baiña irri-barre ugari egin dot Berriz'ko zure barriak irakurtean. Zegaitik? Neuk be zeuk diñozuna esateko asmoa nebalako, eta aurrea artu daustazulako. Itxuraz, «telepatia» izan dogu biok, Murgoitio'ko San Juan'etako egitaraua edo programea irakurriaz batera. Egia esan, «Cajón sorpresa bat»ek eta «Cafe completu bi»k burua guztiz zorabiatuta itzi dauste, ez gero orren ostean «kopeo»rik artu nebalako, berkok zer esan gura eben jakiteko alegiñak alegin egin nebazalako baiño.

Apalondoan «optalidon» bi artu bear izan nebazan, loak artu nengian. Biaramonean be buruari aska ta eraginka niarduan, egitarau «zelebre» ori egin ebana «jakitun» jaioa zala pentzatuaz, eta alan, be, Murgoitio'ko auzunan bizi zalako, orrelako aurrelaria zanik guk ezetako susmorik euki barik. Zuk, berabada, ba-dakizu «programa» orren egillea nor dan. Esaidazu bereala, burua makurtzera joan nakion eta nire biotzetiko agur berarizkoa egin dagiodan. Ain zuzen be, lengo domekan gazte bat etorri yatan auxe esanez: «Zu, Karmele, programa orren egille jakitunarentzat «beka» bat osotzen diardugu, Salamanca'ko Unibersidadera bialtzeko, orrelako bat Murgoitio'ko auzunan bizi izatea benetan lastimagarria da-ta». Nik, pozik be, neure «alegintxoa» emongo neutsala erantzun neutsan. Barriro beste egun baten etorriko zala esan eustan, bitartean zerbait emongo dodan ondo pentzatu daidan.

Esaidazu, ba orain, «Berriztarra» adiskide: «beka» ori neuk be ornidu bear izango ete-dot, ala ez? Erantzun albait lasterren AGUR asteroko onen bidez, arpegiz ez zaitut ezagutzen-eta.

Beste gauza bat be itandu nai neuskizu, orraitiño: programan, zuk ondo dakizunez, «Rebelde conjuntoak opainduta» jarten eban. Baiña, zer da «opaindu» ori? Ez dot entzun berba ori nire bizitza guztian, ezta nire osabak eta osaben osabak be; gutxiago, barriz, «Rebelde conjuntoa». Neuk be Salamanca'ko Unibersidadera joan bearra izango ete-dot ba, berba orreik zer esan gura daben jakiteko? Ba-dakizu, gaiñera, orain zer jazoten dan gure artean: norbaitek bere burua *apartekotzat* agertzeko, ijituak erabilten daben lako ule luzea daroe, eta Anboto'ko auntzak baiño bizar luzeagoa. Egunero «Netol» autsak botaten ei'dabez ule ta bizar artean, kokotxoak ilteko. Baiña, alan be, ez ei'dagoz konforme, gauza bat falta ei'yake-ta: asto-buztan luze bana, noizean-bein euliak uxatzeko. Eta, ba-dakizu zegaitik eta zetarako daroen tximiño-antz ori? Eurak «rebelde» dirala agertzeko.

Orixe esan eustan beintzat lengoan mutil batek. Alan be, ba-dago «Rebelde conjuntoa» baiño barregarriago bat: «Arraska-tripas conjuntoa». Azken onek marka guztiak beteten ditu. Niri neuri, egia esateko, olako «conjuntoak» begietako «conjuntibitis» egiten dauste. Zuri ez, ala? Erantzun, mesedez, zure eritxia emonaz.

KARMELE

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

ETORBARRIAK

Euskotarrok etorbarrientzat izan dogun kezka au, joan zan gudatik sortua ez da bakarrik.

Lenengo aldiz Bizkaia'n industri bearra asiagaz batera bezela sartu zan joan dan mendean. Orain etorri jaku eskualdetara etorbarrien ugaritze izugarri au.

Guri kalte egiteko asmotan ez dira etorri, naizta bateren batzuk eurekaz baliatu ba'dira ere. Egia dana da, bizi ziren errietan lanik aurkitu ez dabelako edo irabazten zituen bear-sariak eskasak zirelako, norabaiteko bidea artu bear izan dabela; euskaldunak Ameriketarako bideak artu izan ta oraindik artzen dituen antzera. Kanpotik etorritako langille onek, gure erriak kokatzea ekarri dabe. Beste edozein erritan, Alemanian esate baterako, beste kultura bateko milloi bat langille sartzeak ez ditu asko kezkatzen. Zerbait kezkatu arren baiña, erri aundia danez, eta onen kultura bideak bere eskuan daukazanez, Alemaniak ez dau kultura eta politika aldetik zertaz kezkatu bear aundirik eta beso onein indarrak bearrerako laguntza diranez, gauzak nolabait antolatzen dira.

Gure toki onetan, barriz, gitxi izanez, kanpotarren etor-aldi luze ta aundi au, neurriz, artu bear dogu, eta gaiñera, euren jatorriko kultura lagun eta nagusi dutela jatorkuz eta gure erri-izate osoa il-zorian jartzen asi jaku. Batetik egia da, langille oneik kalterik ez dauskuela nai; bestetik egia da, kalteak ekarten dauskuezela.

Nola jokatu bear dogu euskeldunok gurutz-bide onetan?

Emen kontuan euki bear doguna da, gure kultura alorrean egiten dauskuen kaltea ez dala langille oneik eta onen sendiak, bere gogoz egiña, gure erriaren agintea ta legebideak eta gure erria zapaldu nai dabenak egiña baizik.

Oneik, noz ikasiko ete dabe gurekin biziten eta guk eurekin? Bai gizon antzera ta baita gizarte kultura edo jakintza eta erriketa arazoei dagozkien bideei begira jarrita bere. Etorbarriak gure antzera gizonak eta askatasunaren jabeak dira, batez be gure lurrean eta gure errian, lana, jan eta bizi-lekua errespetuan aurkitu ba'dabe.

Ara ba, gure gaurko arazo nagusi bat; guk kanpotik etorritako onekin egiten dogun neurrian, aurkituko dogu gure erria barritu ta indartzeko bear dogun giroa ta indarra.

RIKE'TAR JON

GAURKO GIZADIAN

Begira nago, begira. Mundura begira. Euri eguna dan ezkero, nere baserriko itsugiñean uraren zaratea asmetan nagon bitartean, buruan dot zelan dagon munduan ainbeste guda ta alkar-ulertu gureza; atan ere, gure erri ontan.

Bateron batek esango dau: «Ai, laguntxu..., interesak! Ori danori, interesak eragiten dauana dok, nor izango bata baiño bestea aundiagoa!»

Ta, nork dauko, interesen izenean, indarraren arrazoiz, bere menpean daukozan gizonak guda batera eraoteko eskubidea? Zer dala-ta beste batzuen odologaz euren burak goratu?

Or dabiltzaz batzuk, Izadi ontako gauza ederrak galdu egin daitezan, jokatzen. Ondo burugandurik, oso gaitza ikusten dogu elburu ori lortzea, baiña ez eziña.

Beste batzuk, zuzendu nairik Izadia, min egiten dautsela besteeri, ikusten doguz, baiña min orreik alde batera itxi bearko dituez euren eta euren antzekoen bizia aurrera eroan gura ba'da, naizta euren antzekoen biziak ardura aundirik emon ez. Emongo ba'lizkie, beste era batera jokatuko leukie-ta.


Au olan ikusirik, galdezka naiz zer esan gura dauen gaurko egunean itz oneik: Azkatasuna, Bardintasuna, Maitasuna, ta abar.

Gauza oneik burugandurik, aapaldi au eldu jat burura, bide batez abesturik:

O, maitea!
O, laztana!
Gizon batzuen
Azkatasuna
oso gogorra da!

Oso gogorra da bai, baiña olantxe, gogortasunean EGITEN diran lanak, orreixek dira arnari ona ta ugaria emongo dabenak, eta ez besteak.

LANDALUZE'TAR JOSEBA



KONTU KONTARI

Lorratzen atzetik

Lorratzen atzetik dabillenarekin topo egin neban lengo egunean, eta diñost:

—Len be izan zirala bi egunkari Euskel-Atala ekarten ebenak?

—Bai, ta euren diruagaz atarata; bata Bilbon eta bestea Donostin.

—Ba... oingoan Bilbon izango da soillik. Eta asmo ori burutzen bada, iñoren lepotik atarako dabe dirua; ain zuzen be beartsuen lepotik, geure lepotik, geu be zorionez orixe gara-ta; langilleak, beartsuak.

—Eta... bai al dakizu zer izen eruango daben?

—Izena erderaz eruango dau. Euskeraldu ezkero ta H-rik ez ezarri, ERRI izango dau. Ulertuko dozula uste dot.

—Orduan... errikoiak al dira asmo ori darabillenak?

—Izerdi errikoia daramazuenoi ezer emoten al dautsue erbestean?

—Arrolio upelak eskiñi euskuezala beintzat, ori badakizu.

—Ori baltz batek eskiñi eutsuen. Beste orrei barriz, gorriak.

—Txo-txo, ez egidazu asmau maratillarik. Gaurko giroan gorriak ez daukie zeregiñik, ta gu zuri-zuri izan giñanok bez. Batzueri ta besteori ere, ederrak emon euskuezan! Gañera esan dagitzudan, zurien eta gorrien izkera ori ez dala gurea; erbestetarren joka-legea dozu ori. Gu, zetarikoak garan esan bearrik ez dozu, badakizu-ta... ta, ta, ta. Oso polita! Zoragarria!

Ta, ta, ta, orrekin laster atarako dogu gure asterokoa, ixa lortuta daukagun baimena «ezmenan» biurtzen ez bada. Egunkariarentzat aize garbia izango da, aize gordiña. Egunkaria, eginerokoa be alan izango da. Bera ikustean, gure irakurleak nabaituko dabien poza susmaturik, adurra dariola gabiltz. Gure pozak atsegiña damoskun arren, gure irakurleen pozak poz geiago damosku. ¡Gora zuek eta beste guztiok ere bai!

—Len ez dozu ba esan, gorriak eta zuriak ez daukozuela zeregiñik?

—Zeregiñik ez dagola esan oi da, ain zuzen be, zeregin andiak ¡itzelak! dagozala azaldu nai dogunean. ¡Itzelak! Baiña itxaropenezkoak. Itxaropenik ez daukonak... ¡orrek ez dau zeregiñik! ¡Guk bai!

ABELETXE

DENDARI KALEA

Lengo baten, Artekaleaz mintzaturik, idazlantxoaren luzaeragaitik-edo, nire umearoko esaera bat alboraturik itxi benan, ta oraingoan bide batez, laburkiro esatera noatzue. Nire lagun Jon Egileor'eri ta bere senitarteko Egiraun sendi jatorrari nire ausardiagaitik parkamena daskatset.

Mende asierako zazpi kaleetako jendetaldeak ondo be ondo ezagutu oi eban erderaz esaten eben: «Los faroles de Artekale». Argi oneik zirala ta ez zirala, Bilbo zaarreko txokoetan abesti, ipuin eta ixtori-mixtori banaka batzuk loratu ta edatu ziran. Olako batetzaz diardut: Egiraun senditarteko bat, itxuraz luze bai luze ei zan, bi metrotik gorakoa diñoenez. Gaur egunekoak bere ez dira egitan txikiak; ta lenengo ta bigarrengo etxebizitzetaraiño eldu oi ziran argi luzenga areitan, andik igaro bearrean aurkitzen zanean, besoa luzatuaz soil-soillik, errez iziotu oi eban aldean ekarren zigarroa naiz txokorra. Ipuia? Egia? Egiñian be, antxiñan parraparra erabilliko ixtoria.

Orain, Bilbo'ko Erri-zarreko Zazpi-Kaleen azalpenagaz jarraikeran, goi-goika ba'da be, Dendari-kaleak mintza bide jator be jatorra damosku. Dendari-kale onek be Bilbo'ko Azoka Nagusiaren pare-parean datzan Erribera kaleko arkupeetan dau asierea, Zamudio'ko Ataurrean bere amaierea ikusirik. Tartean, Bilbo'ko eleiz nagusi dan Jagoba deunaren atzekaldetik zeararaziaz, Korreo kale barriagoaren azkenengo zabalguneaz topo egin daroa. Oraindikarren beste zatitxo baten len aitaturiko Zamudio'ko Ataurrerarte luzatu oi da.

Kale ontan be, beiñola, prantzesak egon ei ziran ta Artekalen bezela euren dendatxo ta bide-dendak eregi. Emendik, ziur-ziur, gaur eguneko bere izen berezia artuta daroa. Barakulo-marraskilloak euren etxe barruan lez, aspaldidanik bertakotutako salerosleak, tinko, mendeak zear oraintxo barrizturiko ta gaurkotasunez apainduriko kale ontako dendetan pozik ba-diraue alegia. Kale asieran, aspaldi, aspaldian, Arbolantxa'ko Dorrea egoan ta bardin, kalearen amaieratik urrean, Orbe'tarrena. Orain kale zaratatsua dogu egiz. Trolebusak batetik eta ainbat eta ainbat berebil bestetik, Eleiz nagusiaren aurrekaldera urteeran nunnai urduritasuna ta bizitasuna ezker-eskuma daroela.

Euskaldun-euskalzale zaar-gazte yayoak daurkiguz kale ontan ere. Edozelango salerospenetan betiko ama euskerearen katea eten barik euren artu-emonetan zintzoki eusten alegindu oi diranetarikoak ziurrik asko. Kale asieran, Retolaza'ren jatetxe ospetsua dogu, eguneroko ta lagunarteko bazkari joriak gertatzen oso apartekoa bera. Emakume, Gizonezko ta Umeen jantzietan Martin Aldazabal eta Iñaki Zearra, Rufino izan zanaren seme argia, Biok, Aldazabal eta Zearra, Boutique gaietan gorenengoak ain zuzen. Bertan, jantzi-soiñeko apaiñenetarikoak idoro zeinkez. Martiñ'ek iru-lau bizitzako etxe osoan guztiriko oial, lanpas ta etxe-sartzerakoak eskeiñirik, ta Zearra neba-arrebak kalearen alde bietan, beste ainbeste erosleeri Boutique gaietan opaturik.

Aurreratxoago oial, ta miesetan Bilbo'n eta kanpo oso ezaguna dan Salzedo batetik ta Gaston eta Daniela urrintxoago bestaldetik soiñ-azpiko, lanpas, eun eta edergaillu oroigarrietan fiñenetarikoak doguz. Akeitetxeetan, Legarreta Bilbo'n eta igurumarietan akeitsalketa kate bat dauana. Gozotegietan, Santiagito ain ezaguna. Onek Korreo kaletik be, ba-dau beste sarrera bat. Bitxitegi, urre-gai, katei ta gabeukatz-ordularietan Abasolo Bernarta. Usain eta apaingarrietan Juliantxo Salazar euskaltzale beroa. Ta amaitzeko, jatekoetan, itxas-bestaldeko janarietan, Aldekoa'tar Peli. Bere emazte Karmele'k Izurtza izentaturiko Urkiola'rako bidean datzan errixka politean jayo danez, oso euskera errikoian berba egin dagisku, bardin bere senarrak eta alaba Karmele'k be.

Aspaldi baten, izen aundikoa Manukanela etxea ei zan. Orain be ez da bide erdian gelditu. Jangaiak eta gozokiñak batera saltzen ditu, ta denda barrua sarri-askotan laguntaldez beterik aurkitu lei. Zerrenda luze samarra doanez, orain be amaitu egin bear. Esan jatzuezan kale onetako saltoki ta beste ainbatetan, euskeraz egin zeinkie, egin egizue, onetarako gogo apur bat izatekotan. Kendu ba zabarkeria, ta alkar-izketak asi, jarrai ta burutu euskeraz.

Ez gero esan euzkerea gatxa danik. Alperkeria alboratu ezkero ez dago euskera ikasteko baliodun eragozpenik-eta.

ARREGI'TAR JOSU

ARTZAIN ONAREN OMENEZ

GREZIA'KO ORDELARITZAN

Turkia'ko Ordelaritzaz gaiñera, Grezia'koa be leporatu eutsoen. Lenengoz 1935'gn ikertu eban eta lenengo agintarien ostasuna azpiratuta begiko egin zan. Gero gudaldian alemandarrak indarrez yabetu ziranean agintari barriekaz asarretu barik zapaldutako erriari laguntzen alegindu zan. eta gero alkartuak barriro yabetzeko alegiñak egitean izugarrizko goseta izan zanean, Aita Santuaren bidez lortu eban alkartuak erriak bear eban yanaria eroateko baipena. Ez zan lan erreza baiña bere ontasun eta trebetasunagaz lortu egin eban.

BERE GURASO TA SENDIAGANAKO MAITASUNA

Idazki edo eskutitz baten auxe iñotsen: «Amar urte nintuala etxetik urten neban ezkero, idazti asko irakurri ditut, eta zuok irakatsi ezin zeinkiezan gauza asko ikasi. Baiña ondiño be, zuekandik ikasi nintuan gauzak ederren eta garrantzitsuenak dira, eurak eutsiten dauste, eta gero ikasi nintuan gauza guztiei bizi ta beroa emoten dautse».

Eta bere amari 1935'gn idazten eutson. «Eta Yaungoikoaren urrengo, zeruko gauzen urrengo, nor da nik geyen maite dodana zeu baiño? Ni Aita Santu izatera elduko ba'nitz be, zu izango ziñake niretzat munduko emakumerik aundiena, zure semetxo maitekorraren biotzak geyen gura dautsona».

RONKALLI'N ASARREA

Grezia'n Ordelari zala, Europa'ko bigarren gudaren lenengo urtean ikaragarrizko goseta izan zan Atenas'en. Eundaka gosez ildakoak agertzen ziran kale bazterretan. Rokali'k Jaguntzeko bideak eraldu zituan. Aita Leibel kaputxindarraren bitartez yakin eban salerosle batek izugarriko garesti saltzen zituala, bearreko ziran urun eta barazkiak.

Bere idazkaria lagun ebala yoan zan, indarrez zabaldu ateak eskutuan pillatuta eukozan gauzak ikusteko era indarrez zematu eban yanariak merkatuten ezpaebazan. Egundo ez eben ikusi ain asarre. Eta zuzen atan be, besteen zoritxarragaz aberastu gura dabenak besterik ez dabe merezi-ta.

RONKALLI'N GOGAPEN BATZUK

Adei-lege edo bestekazko artu-emonetan atsegingarri izan, goi-maitasunaren adar baiño ez da.

—Gozatu ta neurte egin bear, onena gura izan.

—Egun eta illa guztiak Yaungoikoarenak dira, guztiak bardin ederrak dira-ta.

—Gotzaiña erriko-iturri antzekoa da. Ni nazan iturri apal onetara mailla guztiko gizonak etorten dira. Nire zeregiña guztiei ura emotea da.

—Garraztasun barik, ixillik egoten alegintzen yarraitu gurago dot, bere aldian laztasun au onuratsuago izango da-ta.

—Bizitzan zer besterik gura izan neike? Ezer be ez auxe izan ezik: neure bizitza osotuten alegindu, eta neure gotzintza ta Eleizaren morroitzako eginbearrak betetea baiño.

—Nozik bein txirotasunak, bear izanak aginka egiten daust; neureai lagundu eziñak, ainbeste izanda gauza askoren bearrizanez dagoz-ta. «Zorionekoak beartsuak».

IRUROGEI URTE

—«Irurogei urte! Adiñik ederrena, Osasun ona sentzun obea, gauzak argiago ikustea, gaitasuna, gozotasunez, baikortasunez eta ustez».

YASOKUNARI ZELAN BEGIRATU?

Turkia ta Grezia'ko Ordalari zala, 1942'gn urtean itzaldi baten auxe esan eban: «Gutariko bakotxari atsegin izaten yako, geuri eutsiten dauskun lur atalaren gaiñetik ikusten diran lez yazokunak epaitutea, au da, bakotxaren laterri aldetik begiratuta. Ori amesken andi bat da. Gorago igon bear da eta guztiak batera gogoz besarkatu; gora igon bearra dago gudaldian dabiltzan muga banatzaileak ikusi ez egiteko eran».

«GAI ETE NAZ BA?»

Paris'en Nunzio edo Ordelari izentatzen urrutidatzez izparra eldu zanean, ezin eban ulertu. Okerren bat izan zala uste eban. Erroma'ra yoan bearra izan eban. An egia zala yakin ebanean esan eban: —«Ni Paris'era bialtzea nai dabela? Arazo garrantzitsu orretarako gai ete naz ba? Nor izan da asmo ori euki daben zoroa? «Gero yakin eban Aita Santua bera izan zala, izentatze ori egin ebana. Guda ostean zeregin latza izan benetan.

MANTEROLA'TAR GABIREL

ONA
ta
RAM
EZNEAK
ZUK
ONARTZEKOAK
DITUZU

KIROLAK

GURE MENDIAK

Mendizaleak, geyago edo gitxiago jakiña, mendiak maite ditu; bai ba, orregaitik da mendizalea-ta. Ta euskotarra ba'da, eusko errietan mendi-zaletua ba'da, ainbat eta geyago bertoko mendi orlegi ta aitz zuridun gaillur erpiñak, ez baiña igon eziñeko bestekoak.

Gure lurraldearen zati andiak be, guztiok dakigun lez, menditzuak dira. Asko, ikusgarriak dituezan ikuskizunakaitik, eta beste batzuk zerbait jakingarri dabelako euren gaiñean edo inguruan.

AGUR'en irakurle diranen artean be ba-dira, zelan ez! medi-kirol garbi onen maitaleak eta orreitariko mordo batek eskatu dauskue, noizean bein besterik ezpada, mendi batzuen azalpenak emon daiguzala, baiña eurotara diran igoera edo biderik egokienak aipatuten. Ta orrein naia bateten pozik aleginduko gara, aurrerantzean zerbait idatzita, AGUR'en «kirol atal»ean argitaldu al ba'da.

Bizkai'ko ego-aldean, Araba'ko lurralde zabaletan, ba-dira ainbat mendi ta mendi-lerro ederrak, askorik ezagutzen ez diranak, edo gitxi baiño ikustatuak izan diranak. Arkamo mendidia; mendi-lerro au Orduña ganean asten da, Garoibel (Sierra Salvada) mendi-lerro onen adar bat da izan be-ta. Ipar-aldetik ego-aldera doya, Zubijana ta Pobes'en bitartean aurkitzen dan Tetxa (Atetxa?) aitzean Badaya mendidiagaz alkar mugatuteko. Ta orretara, mendi-lerro onen bidea ta batetik bestera zearkatu nai dabenak, Puentelarra'ra doyan berebil nagusia artu leike, Berberana gaiñeraiño ta mendirik-mendi Kuartango'ko Zuatzo'ra jatsi. Baita, azkenengo erri onetara bultziz joan eta Orduña ganera etorri.

Zuatzo'tik igoteko, bide bi ditu oso egokiak; bata Zuatzo'tik laster aurkitzen dan Jokano erritxura bitxabalez joanda, ta bertatik gora bideari jarraituz, aldenduteko bildur bairik, mendi gaiñeraiño elduten da. Montemayor izenagaz ezagutzen dabe alderdi ortako gaillurrik goyena, naita inguru orren jatorrizko izena Areta izan.

Bigarren bidea, Zuatzo'tik amar aneineurkiñera bitxabalez aurkitzen dan Arriano erritxotik eskumarantz lenengo, ta geroago piñuartetik gora zearka goiko atxetara. Bertan, eskuma aldean, Kruzeta'ko gaillurra aurkitzen da. Ta urrago, pizkat sartalderago, Errepiko'ko musturra. Goi alde guztia, milla neurkiñetik gora goitikoa.

Mendidi au Garoibel'en antzerakoa da, esan dogunez, bere adar bat da izan be-ta. Aitzarri ebagi ta iñarratzua, baiña pizkat garbiagoa. Zugaitz gitxi, pago banaka batzuk eta arantzak, baiña kaskarrak. Ba-dituz aitzulo batzuk Zuatzo aldera, ta ainbat leza. Ez dau iturririk, guk dakigunez, baiña bai urbatza txiki batzuk an badiltzazan abereentzat. Arritzua da, ta beraz, oinkada on-onik ez dauko, baiña mendigoizaleentzat egokia da, alderdi bietara ikuskizun ederrak ditualako; Kuartango'ko aranera ta Berberana'tik Espexo'rarteko zelaiune guztira. Eusko mendigoizalea, ezagutu zure lurraldea ta ez jatsu damutuko!

DURANGOAR TABIRA, mendizale taldekoak, urte guztietan lez, Urkiola'n ospatu dabe euren urteroko jaya; au da, urte barruan egin dabezan leyaketa, ibillaldi neurtu ta abarreko sariak bananduteko ospatuten diran jayak. Ainbat domiña, txoli ta beste sari banatu ebezan beste ainbeste mendigoizale artean, eta gazteak asko euren artean.

Banakuntza ori dala zio, jai politak egiten ebezan tabiratarrak aurreko urteetan, Urkiola'ko alderdi zoragarri orretan. Baiña, aurten, eguraldiak lagundu ez dabelako-edo, ez genduan beste urteetako eusko girorik ikusi; ez dantzaririk, ez beste alaitasunik. Zergaitik tabiratar adizkide onak? Egin be eguraldi zikiña, lanpartsua egin euskun Garillaren 9'gnean-eta.

ALTUNA'TAR JOSU

GABE, MERKEAGO

Orain esatera nuana ez da ipuia, gertatua baizik; eta ez oso urruti, emen gure Gipuzko'ako erri batean. Udaberriko arratsalde bat zan.

Aipatu dugun erri ortako albaiteroa, bere adiskidearen arategian, oitura zuanez sartu ta agurtu bere lagun-zaar arakiña. Baiña onek, albaiteroaren agurrari ez dio erantzuten. Ain zuzen arakiña, urrutizkiñaren zenbaki-zerrenda estu ta larri aztertzen ari zan. Albaiteroak bere laguna egoera ortan ikusirik, galdetzen dio.

—Zer arraie gertatzen zaik, nere agurrari ez erantzuteko?

—Ai, nere adiskide Andoni, ez al nauk ikusten zertan ari naizen? auzoko errian dagoen Hotel bateko urrutizkiñaren zenbakia billatu nai diat, eta alegin guziak egiñ arren, ezin diat aurkitu.

Albaiteroa urreratu zitzaion, eta beriala oartu zan, arakiña begiratzen ari zan zerrenda O'aren zenbaki-zerrenda zala; eta jakiña Hotel'aren zerrenda H'renean izan. Nola aurkitu?

Arakiña batetik, lan asko; bestalde, begiratu ta aurkitu ezinda, aspertua zegoanez, bere lagun Andoni'ri zerrenda luzatu ta esaten dio:

—Ar zak eta aurkitu zak lenbaitlen zenbaki ori.

Albaiteroak aitaren egiñ orduko, arakiñak bear zuan zenbakia or nun, aurkitzen duan.

Arakiñak pozaren-pozez, ezertxo ere esan gabe, artzen du aiztoa, zorrozten du ta... txuleta bat ebakiaz ematen dio esanaz: egin didaken mesedeagatik, apaltzeko ar zak txuleta ori. Arakiña beriala konturatu zan nunbait, txuleta batekin, bakarrik, apaldu bearko zuela eta, beste bat eskeintzen dio, ar zak bestea, bakarrik baiño obe duk lagunagaz apaltzea-ta.

Albaiteroak eskerrak emanaz, artzen ditu bi txuleta eta or dijoa bixibixi «ferreteri» bateko bere lagun zaar batena; sartzen da dendan, eta bere laguna beste bi adiskiderekin, alkar-izketan ari dirala ikusten ditu. Bere adiskideari arratsaldeonak emanaz, esaten dio:

—Onean nagok ta gozoro-gozoro itz egingo diat. Eta astiro-astiro gertatutako guzia agertzen dio. Onek, entzunda gero, erantzuten.

—Ara, Andoni, bi txuleta auek biok bakarrik apaltzeko lain dituk. Ez al zaik iruditzen bi txuleta erosi ta laurok afaltzea obe dala? askotaz umore obea izango diagu.

—Bai, ta arrazoi guzia duk. Esan, eta or dijoa gure albaiteroa, bere adiskidearen arategira ta bi txuleta erosiaz, dendara itzultzen da. Denda, itxitzeko ordua zan, eta itxi ondoren, ba-dijoazte laurak taberna batera

Apaltzeko txuleta baiño oberik, zer? gaiñekoak zer esanik ez; kapea, pattarra e. a. alkar izketaren paltarik ez noski; giroa, lagun artekoa.

Eta bat-batean laurotako batek dio: Gure billeratxo au bukatzeko, guzia nork ordaindu, musean jokatuko diagu. Jokatzen dute, ta Andoni albaiteroak eta bere lagunak galtzen; eta orduan maiz gerta oi dana, eskuz-esku dena nork ordaindu. Larritasun aundiak igaro ta joko estua jokatu arren, Andoni albaiteroa galtzaille. Onek, dena ordaindu bear. Besteak, ezpaiñak igurtzi ta etxera.

Etxerakoan batek dio: —apai gozoagorik...! —eta albaiteroak: H'rik izan ez ba' zian MERKEAGO izango uken.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

GETARI

Getari erri txikia dala guziok dakigun albistea da. Getari'k ordea, bere kondaira edo istoria bai du, beste erri guziak duten bezela. Getari'k, lenen daukan zer esan ori, toki polita dala da. Bellas Artes dalako izen au (erderaz idazten det. euskeraz idazteko dezberdin dalako). Bai dute ere bertan Eliz Nagusia «Monumento Nazional» izenpetuta. Bi izen oiek oso politak dira. Nik ordea, gaur emen ez nai artu aintzakotzat. Getari'k olako edertasunekin, alegia, Bellas Artes ta Monumento Nazional orrekin, ez dula zer ikusirik. Getari'k eta bertako biztanleak ez dute olako aitamenekin eguneroko ogia irabaziko. Ortako Madri'k ematen ez'badio beintzat, ogi orren ordaintza, getariarrak itxasora joan bear eta arraiak ekarri.

Izen dotoreak Getari'ko erriarentzat baiñan, kaialdea eskamez betea egotea obe. Zertako daude izenpetuak erria ta eliza? Udaaldean datozen turiste gaitik? Edertuaz, kanoetan, edo balandretan, dabiltzan turistegaitik? Edo'ta, kaiñaberekin arrai txikiak arrapatzen dabiltzanegaitik? Ez jaunak, ez. Neri olako ikusmenak barregurea ematen dit.

Getari'n beste erri askotan bezela etxe berriak egiten ari dira. Goialdean esan geinke egin dituztela dozenerdi etxe berri. Kale berri bat, eta bere izena orain «Kristobal Balenziaga» jarri diote. Etzun gutxiago egin bear bertako Alkate jaunak, Basterretxea Balenziaga'k.

Alkate jaunak egiten ditun pausoak aundiak dira. Onek egin dunik ez dute besteak egin. Ortako yayua danez, erriak oso ongi begiratzen dio. Gaztea danez, bere aurrekoen antzik ez du beintzat. Pentsa, Madrid aldean lortu ditu 50 urteuneko ELKANO 'ren pestak. Aurten beraz ikusiko ditugu jendetzak Getari'n.

Getari'k lurralde gutxi du. Esan nai det, etxe berriak egiteko. Garate mendiak aldapa besterik ez bai du, ta orrek ematen diote buruko min. Errian etxeak zaartuta daudenez, egokiago izango zitzaioten zaarrak jausi bera ta gero leku berean berriak egin. Ortako ordea, dalako «Bellas Artes»ori izentatu zutelako, galerazia daukate berriak egiteko. Eta ori, ez dute ongi ikusten erriko semeak. Etxe askok egunka urte dituzte, ta uste gutxienean bera jausi leizke. Zer egin? Dauden bezela bizi, ta orkonpon esan, geroko ezbearren bat sortzen ba'da? ¡Tamalgarria Getari'ri gertatzen zaiona!

Eliza ostea, Monumento Nazional izentatuta dago aspaldiko urtetan. Bera zaitzeko ordea, bear diran dirutzak bear dira, ta ez dagon bezela, gero ta zaarrago, uste gutxienean korua edo beste alderdiren bat jausiko dalako bera. Guziak bear dan bezela sendotzeko, milloi asko bear dira. Milloi oiek nundik lortu? Madrid'tik noski, Madrid'ek izentatuta daukanez Monumento Nazional, beok lagundu bear noski, beste iñork ez.

Ortan dabil Alkate jauna. Lortu ditu aiuntamentua berritzeko diruak Diputaziotik, eta Elizarako lortzen ere uste det alegiñak egingo dituala.

Getari'k daukan kai edo molla ere, beti bezela dago. Portu txikia, ta itxas ontzi gero ta geiago ta aundiago. Kantauri itxas ertzeko portuak aunditu dituzte, ta Getari'n beti egitekoak dira. Ortarako jaun zonatuak bear, dalako Praille Buruko biltokia egin zutenen bezela. Ba dirudi laguntasunik ez dutela, ta Getari'ko kaien kontuak Ora Pronobis...!

Beste beartasun aundia daukana da, alegia, arrandi aundi bat egitea. Kofradia alboan bai dute leku berezia. Nola leikez orrenbeste itxas ontzi eduki erriak, eta oraindik arrandi gabe egotea? Askotan bertako ontziak beren konsumoak egitera beste errietako kaietara joaten dira. Izotza ta abar egiteko ere bai, ta orrek esan nai du; getariarrak oso atzeratuak daudela, ez berak dutelako erru, baizik kanpotik ez diotelako laguntzen.

Gure gazte denporan esaten gendun: Bai, Getari'k ez dauka trenik eta origatik ezin leike aurrerapenik egin... Orain ordea, trenak ez dute deusik balio, kamio aundiak zearo estali dituztelako trenak.

Zarautz'en daukaten lantokiak egurrezkoak dira, zer esanik ez makiña ta abarrekoak. Berdin Zumaia'k ere. Getari'k ordea arraiakin bizi bear du, ta arraitzak ekartzeko ta itxas ontziak bertan lasai moldatzeko, portu aundiagoa bear du. Egunen batean lortuko dutela getariarrak eta bien bitartean itxoin egin bearko dute.

Getari Bellas Artes...? Eliza Monumento Nazionala...? ¡UTIKAN!

E. OZKIN

Egiztatu egizu zerorrez

BYASS 96

diñoen aiñako garaitsua dala...



GONZALEZ BYASS

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

ETXARRI ARANAZ

PERU ALDEAN

SAN ADRIAN'GO ERROMERIA


Bein batean, 1.971 garren urtean, Etxarri ezagutzeko aukera ederra izan nuan; etzaitana errex aztuko, San Adrian eguneko erromeria zan. Jose Maria Satrustegui apaiza, nere adiskide miñakin nintzan. Goiz, Etxarri'ko kaletan txistu doiñu eztia entzuten genuen. Giza seme mordoxka bildu zan eliza atarian. San Adrian'en 17'garrengo irudia eskuan txinguarriakin, artu zuten bi gizonen artean. Danak errenkan jarri giñan; txistulariak aurretik, gure santua, erretora, erria ondorean. Gipuzkoa'ko bidea artuta, kare ola ondotik, basoko bidea artu genuen. Egun oietan, mendi bidearen inguruak ezin diteke egokiagoak izan. Danbolin Txulo'ko ariztegiak ikusteko modukoak dira. «Leñua» erreka ondotik dijoa gure bidea, marrubiak baztarretan dituala. Urbia zubia igarotzen da, Santuaren atzetik lasai ibillaz, txistu doiñua entzunez. Aldapatxo bat, iratzez betea dagona igota, egi batean zugaitz galantaz inguratuta arkitzenda San Adrian'en baseliza.

Santuaren irudia bere etxean utzi zuten gizonak eta goraxeago aritz tartean SANADRIN zelaian giñan danak. Aiuntamentuaren izenean gizon batek aragi prejitua antolatu zuan eta aren saldarekin zopak egin. Ardoa, erriko bi kalen pitzerretan banatzen dute. Danak, zerbait jateko aiña ba zegoen. Ardoa ere naikoa. Erriko etxeak ordaintzen ditu.

Gosaldu aurretik alkateak euskeraz agurtu zuan erria eta ondorean «Gernikako Arbola» gizonak txapela kenduta abestu genuen. Orain berrogei urte aurretik bezela, ba dira lau urte orrela egiten dutela. Azkenean inguru eder bat eginta «Dantzakia» dantzatzen dute. Aurresku antzekoa da baiñan naparra. Orrela sakandarren artean bakarrik dantzatzen dira. Bereala baselizan meza eman zuten; abestiak, otoitza ta itzaldia, dana euskeraz. Gero txistuaren ondotik erriruntz itxuli giñan. Toki jakin batzuetan bizpairu «arin, arin» dantzatzen dituzte. Alaitasunean dijoaz errira. Len, Jose Maiza'k esaten zidanez, erromeria bukatzerakoan, enparantzan ematen zuten azken itxulia ta mutillek neskei txokolatea eskeintzen zieten.

Ariztegi aien aurrean, txistua entzutea ta dantza eder aiek ikustea, zoratzen uzten dute euskalduna. Aritz oietaz, zerbait esan nai nuke. Goraxeago ba-dago bat, gerri inguruan bederatzi dauzkanak eta beste bat ia ustelduta, erditik furgoneta igaro lekiokena. Guk izan genuen eguna ezin leike ordaindu. Ango giroa ezin degu errez aztu. Orrelako oiturak egiten dute erri baten aberastasuna ta bere nortasuna azaltzen dute. Orregatik bear ditugu oitura oiek gorde ta indartu.

ETXARRI ARANAZ, SAKANA'KO erri buru dugu; erri ederra, bere 2.200 bizilagunekin. Errege bide nagusia



gaiñetik dijoakiola, erdian enparantza luze ta zabal bat dauka. Bost kale ditu; Fueros'enea, Txikia, Ualde, Mundiño, Maiza. Enparantza nagusian, erriko etxea gaillurrean, burnizko kanpai txiki batekin, ertzean eskola zarrak ta atzean frontoi itsia. Eliza arri landuzkoa, ederra, galanta, 16'garren gizaldikoa, erri muturrean Aralar aldera daukagu; sapaia arrizain ugariakin. Erretaula barrokoa, ikusgarria, 18'garren gizaldikoa, lau abe aundi biurrikin mats mordoak ditula txintxillik. Erdian Maria zerura igotzen dala, oso polita; bi saindu aldetan, beste bi azpian ta bi aingeru polit goien dantzak bezela. San Juan ta Maria'ren erdian, gaiñean, Gurutze bat dago. Bi irudi oiek, oso ederrak, barrokoak dira baiñan neretzat gurutzea 15 gizaldikoa da. Bi basterretan, bi aldara barrokoak daude ta batean Arrosario'ko Ama 17'garren gizaldikoa. Koru azpian irudi bat Aita Jainkoa, bere seme illa besoetan daukala, itxuraz gotikoa, izan leike 16'garren gizaldi asierakoa izatea. Ekaitzetan, arria egiteko beldurra dutenean, berealaxe ateratzen dute errogatibak egiteko.

Eliza erdian, euskeraz idatzita dago: «Pakean sinisten dut. Salbatzallea bizi dutela ta azken egunean lurpetik jeikiko naizela». Sarrera ederra du eliza onek, 16'garren gizaldikoa, aterpe bezela erantsita dauka 18'garren jauregi antzeko bat; Dorre inguruan Arkupe eder bat berriz. Erri gaiñeko aldean, Lizarra'ko bidearen bi alderdietan, bizitzako etxekin auzo berria egin dute.

Orain Diputazioak ola toki berexia izendatu du Etxarri Ba-daude lau ola koxkor, bi telleri, bi zerreri ta egurrena, 300 langillentzat gutxi gora-bera dago lana. Lurgintzan ere etxe askotan lana egiten dute. Batzuek ere egunero Goierri'ra dijoaz.

Baso ta lur asko ditu erri onek, Lizarrusti'tik asita Andimendi'raiño. Ba-ditu bizpairu baserri. Gipuzkoa'ko bidean, Bekola ta Urbasa'pean Artxulo. Ba-dauka beste auzo bat Gipuzkoa'tik Arbizu'ra dijoan bidean; zazpi sendi bizi dira, Lizarragabengoa du izena.

Antziñako garaietan ere ba zeukan erri onek garrantzia. Naparroa'ko batzar nagusian ba-zuan bere eseri leku izendatua. Gipuzkoa'ko bide ta muga ondoan zegoan. Bi auzo zeuden; Etxarri'n Gaztelua zan ta Aranaz'en gizasemeak. Santxo Azkar'ak askatasun aundia eman zion. Gero bi zatiak batu ziran ta aurrerapen aundiak eskuratu zituzten Luis Utin beren errege aldetik.

Karlisten lenengo gerratean, joan dan gizaldian, Zumalakarregi'k artu zuan Etxarri. Sartu zan erri barrenean, baiñan liberalak gaztelutik (gaur eskola zarrak dauden tokian zegoen) gogor egin zioten. Azkenean lur azpitik guda tresna bat sartu zien ta arek lertu zuan gaztelua. Orrela nagusitu zan erri ontaz.

Euskera, Etxarri'ko kaletan asko entzuten da. Gaztetxoak ez dute asko egiten, mutillak geiago, neskak oso gutxi, eskolako aurrak gutxiago. Zortzi urtetik emezortzi bitartera ia dena erderaz egiten dute. Ori monjen emaitza omen da. Lantokietan, gazteak, euskeraz egiteko bidea berriz artzen dute. An jabetzen dira azkenean.

Len ere, euskera indartzeko egiten zituzten lan ederrak 1.923'garren urtean Euskalzaindiak antolatuta egin zuten jaia eder bat; abestiak, antzerkia, olerkiak, euskal aurrei sariak.

1.961'garren urtean urrillaren 29'an berriz, erri ontan ospatu zan Naparro'ko Bersolarien lenengo txapelketa. Goizuetar, Andres Narbarte'k jaso zuan saria. Frontoia leporaiño betea zegoan.

Baiñan euskera indar berritzeko, gaurko iturritik ur goxoa eman diote; ikastola iriki dute. Berri onek asko esan nai du. SAKANA'KO erri guztietatik ETXARRI degu buru, beste guztiak berari zer egiten dun begira daude. Orain dala iru urte asi zan monjetan. Urrengo urtean aldatu zuten Eskola zarretara. Aurten gela berri batzuek egin dituzte. Lenengo urtean 25 asi ziran; 1.971'garren urteko ikastaroan, berrogei ta sei daude, Ba zan garaia, baiñan egiña dago.

«Udaberri» gazte mendizalen alkartetik jaio zan asmoa. Pedro Lizarraga ta Juan Maria Artieda izan ziran, asmo zoragarri au sortu zutenak. Lendabizi, euskal abeslariak ekarri zituzten. Gero Urdiain'en, Satrustegui'kin arremanak izan ondorean, euskera irakaslentzat ikastaro bat antolatu zuten Jon Oñatibia etorri zitzaien ikastaro ori ematera ta etxarriarrak, bi neska ta bi monja bidali zituzten. Joan dan urtean berriz euskal jaia antolatu dute.

Poliki poliki lenengo urratzak emanaz zijoazen. Orain dala iru urte monjetan Mikelatxo Jauregi'k ordu bat ematen zien aurrei egunero; Azientzat berriz Tomas Lizarraga erretora Jaunak. Urte ori bukatuta, euskeraz zekin monja, urrutiko beste etxe batera bidali zuten. Aurren lau guraso, lau Patxi (Patxiko, Imaz, Karasatorre ta Barandaiba) joan ziran monjengana bear bezela ikastola jartzeko eskatzera. Euskerari buruz, monjen artean giro txarra zegola ikusi zuten; «Euskera zertarako?», esanaz. Orduan Aiuntamentuaren baimenarekin eskola zarretan jarri zuten.

Aurten gela berriak eraberritu dituzte, iraillaren 15'an, Alkateak eta Erretorak an zirala bestekin batean. Gurasoak 50 pezeta ordaintzen dute illero, Aiuntamentuak 1.500 eta gelditzen dana «Principe de Viana»ko euskal batzordeak.

Asiera ez da errexa izan. Guraso askok uste dute, euskerarekin aurrak atzeratu egiten dirala. Gaur ikastola babesteko, 30 guraso alkartuta daude ta buru bezela bost gizon ta bi mutil jarri dituzte. Euskalzale jator auek nai dutena da, beste eskoletan ikastolentzat tokia egitea, Asmo au ontzat artzen duan irakasle bat ba omen dago. Orain bi andereiño daude ikastolan, Juana Maria etxarriarra, ta Nati Aranburu elorriotarra.

Erriko eskoletan, 14 urte bitarte aurrei bi taldetan ordu bat egunero ematen diete euskeraz. Azientzat berriz, aurten ziran euskerazko ikastaroa jartzeko. Gaur ba daude erri ontatik lau neska andereiño; bi Iruña'n, bestea Laitza'n ta laugarrena bertan. Ikastolara joan nintzanean poza ematen zuan ango garbitasuna ikusita. Azken agurra ematerakoan, aurrean gizon bat babarrun aleak jotzen ari zan. Argazki bat ateratzerakoan esan zidan: «Atera guapo. Otsoan ipurdia baiñon zakarragoa atera ninduten bein». Aurten, erretorari, ikastolako aurren gurasoak kristau ikasbidea ematea eskatu diote ta berak ontzaz artu du.

Elizan igandetan sei mezetatik, bi euskeraz jarri dituzte, zazpitan ta ordu batean. Bigarren meza ori, euskeraz emateko, Iruña'ra gotzaiarengana joan zan erriko gizon talde bat. Agindua goitik etorri ezkero, meza euskeraz emango zula, esan bai zien erretorak.

Euskalzale jator batekin topo egin nuen, Urbano Ijurra'kin. Alkarrizketa artaz, oroituko naiz luzaro. Urteak ditu, gizon au gaztea da; «Jainkoaren izketaren ordez, ze eman bear digute bestek?» zion. Gerra aurretik euskalzale sutsua zan ta Naparroa'ko Erriberan barrena ibiltzen zan, gure kultura, dantzak eta kantak zabaltzen. Gero etorri zan gerra ta aizeak astindu zituan bazterrak. Garai artan, iru edo lau aldiz «Zeruko Argia» izparringira bidali zituan idazlanak. Gizon onek esanta, jakin nuen nola Etxarri'n orain dala 60 urte, sartu zituzten elizan euskal kantak, kaputxinoak. Irugarren ordenekoen bidez, egin zuten lan ederra. Langillerik aundiena aita Ladislao Donosti'koa zan. Garai artakoa omen da, «Kristorenak-gera» eliz kanta-Principe de Viana euskal aldizkaria danak artzen dute. Erri aberats onek, bere diruarekin gauza asko egiten ditu. Sei txistulari ta banda dauzka. Urtero monjei 80.000 pezeta ematen die... Ba-dago ere abeslari talde bat eta bi mutillek euskeraz kantatzen dute.

Ainbesteko indarra duan erri au, bere nortasun jator ta azkar ori bear bezela agertzeko, buru baten bearrean arkitzen da.

LATXAGA

«Kontakizun askoren ondoren, anekdota askoren ondoren baita joan etorri askoren ondoren, or esateko uzten ditutanak, Lima'ra iritxi giñan. Lima, La Paz ikusita gero, paradisu bat dirudi. La Paz'en, eta xeetasun au naiko adierazgarria da, uriaren bost zatitik batek bakarrik dauzka alkantarillak. Gabaz ezin zindezke bakarrik atera, bestela azaldatu egiten zaitue. Uriaren geientxoena txabolaz osatutakoa da, bertan inditar abendakoak bizitzen diralarik.

Lima, bestalde, uri europar baten antza geiago du. Atzo sartu giñan emengo neguan ta girorik goienena 20 grado, eta gutxiena 17 grado. Auxe, alkandora utsean ibili ditekeala bat».

«Emengo aldean euskaldun gutxi dago... eta ala ta guztiz ere bi fraile euskaldun ta Beasain'go monja bat arkitu ditut. Arkitze au oso arduragarria da onelako tokietan, zenbait laguntza arki bai-ditzazkezu».

«Lengo egunez, Garagarrilla'k 19 gnean. ikaraldi bat jazan genuan. Lurrikara bat, alajañetan. Oeraturik nengoan, bostgarren bizitza batean. Ikaraturik esnatu nintzan, ta guztia mugitzen zala ikusi. Galtzak jantzi, eta kalera... igaroa zala esan ziguten arte. Maiz omen dira emen onelakoak. Orain dira urte bi irurogeitamar milla gizaki il zirala, erri osoak ezereztu ziralarik.

Bidaltzen ditan izparringi zatiak lau gradoko lurrikara izan zala, esaten du. Ordua, goizeko amarretan. Jende asko irten zala kalera, dio.

«Emen, kontakizun bezela, emakume arazoa zabarregia da. Emakumeak errezegiak gertatzen dira. Baiñan baita homosexualak edo atzelariak ere. Onegatik, guztiz arriskugarria da bein gabeko amabirak aurrera bakarrik ibiltzea kalean. Sarri gertatzen da iru edo lau oetakoak beribil batean etorri eta indarrez artzea, azaldatzea, ta berekin eraman. Lengoan zinetik nentorrela, bi beribil gelditu zitzaizkidan baiñan uxo joan ziran jendea zebillelako Beste orrenbeste gertatu zaie «Etorki»ko besteren betzuei. Onetxegatik zer edo zer galtzeko daukan guztiak ben pistolatxoa patrikaran eramango du...»

Benetan tamalgarria au guztia! Ai! Euskal-Erriko gau paketsuak! Zabarberiak noraño eramaten gaitun! Bai, Ameriketako un nagusi geienetan da beldurgarria gabez ateratzea. Nola ez moralarekin gauz guztiak lur jota baldin ba-daudez? Zabarkeria eta litxarrerikeria nagusitu da».

«Agerkizun bat bezela Rio'n gertatu zitzaiguna. Gure etxearen ondoan, kale iskin batean, eskale bi, zakurrak bezela ari ziran... Margera bat artu eta zaztezazta bizkarrean emanik an joan ziran marmarrean kalean barna... gero, andreak, bengatu nairik, itzuli, gonak altxa eta sabeleko zeako-zeak uztutzen jarri zan gure atean... Guk, galzazko eskopeta ar, ta dunda ipurdian. Gau guzian ez zan ixildu gero bereal-dikoak esatez. Gu, parrez ler».

«Emendik Colombia'ra goaz. Gero Venezuela'tik Mexiko, Ipar-Amerika eta, azkenik, Kanada ra. Bidaliko al dizkitzut berri geiago.

Gorantziak zure seme ta ene lagun Xabier'i».

UXOLA



EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI

GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ERRIETAKO BERRIAK

Ermua

ERRIKO JAIAK

Santixauak eta Santanak, beti izan ziran inguruko errietan ezagunak, eta alde guztietatik jendetza ederra etorri izan da Ermu'ra urteak zear. Emen ondo artzen ebezen gure zarrak, eta guk be beste orrenbeste egitera beartuta gagozelako, egin izan ditugu gure alegiñak.

Bai, azken urte onetan, barru aldeko errietako jaiak indar aundia galdu dabe, udan jaiak diranean batez be, ta erritarrak be itxas ondora edo mendi aize-garbidunetara joatea naiago izaten dogu. Aurten baiña, iñoiz baiño geiago geratu gara errian, eta Ermu'ko jaiak alaitasun obeakin asi genduzan.

Emengo daniza, abesti; bazkari ta jai-aldiak, iñoiz baiño alaiagoak agertzen ziran, eta alaitasun onek eraginda-edo, gure gazteagoak be, euren bizi-hoza agertu nairik, or ebillazan zarataka ta ujujuka. Santixauetan, bateron batzuk zarataz beteegi egin zralako-edo, ixillago ibilteko eskatu eutsoen, ta gabeko ordubatetatik aurrera ez jarraitzeko. Ara baiña, Santana egunean, eguerdian, ordu batak eta erdiak inguruan, or etozan euren poztasuna ezin gordeta burdin eta egur ots itzelean gure gazte jatorrak. Ta betikoa, berrogei kontatzeko astirik ez, ia bitartean odolak oztuten diran itxaiteko aukerarik izan ez, eta asarre-berotasunak emoten daben lenengo itxualdian, an aurrean gazte bat, aulki anka batekin tanbor aundi bat joten, artu orren makillea ta buruan zartateko bat emon eutsen. Ta or, Unanue gaztea, gure «Txotxin» Donosti'ko osatetxe batera eroan bear izan eben baterakoan, eta jai guztiko ta erri arteko alaitasuna eten.

Ez al dok izango «Txotxin» oker aundirik, eta ia laster aizen gure artean, danok atzera ermutar jator lez lagun eginda, okerrak zuzendu ta aztuta, erri bizitza obeagoa lortzen dogun. Orren zain eta ori eskatzen biotzetik.

ARANBARRIA

Bermeo

Ie itxuan ibilli dira aurten gure arraintzaleak bokart edo antxobiaren atzian, Deun Jon jayak egiteko asti barik. Eta geben edo galarazo ezpatsoen egin anaidi agintariak, biar, ba'da, Deun Kepa'k igarota be emen ikusiko genduzan atun eta egaluzea albo batera itxita.

Lengo aldiyetan: obeto esateko ontsu, ekandu zarrak benetan gordeta, «kosterako» ontzi barru lagunak nortzuk diran ezagututeko, Olbizarreta'ko Gaztelugatx'en Deun Jon'en meza ederra entzun, eta bazkariya jaten zan. Aurresku eta biribilketa alai santzodunak egin, ereiñotz abar baten erroska deritxon gozokiak umetxuentzako erosi eta, etxeratuten ziran poz pozik. Gaur zer? Aztu dira gauza onik asko gure errian. Apurtu da ANAITASUNA. Au tamala benetan.

Jayak be zer? Deun Jon aurre egunean su-ziri batzuk erre: iru edo lau kaletan su tontorrak egin: Deun Jon arkupe aurrean dantza batzuk dantzatu eta kitu. Esan lei ganora guztiya galdu yakula bermeotarreri. Entzuten ete da lengua lez oraiñ! «Biba San Juan Alegreee!» Ezta urrutik be.

Arraintzalien zaindari dan Deun Kepa egunean ere bardiñ. Aurre egun edo besperan, su-ziri zarata batzuk egin. Gabeko dantzaketak zumardi edo lameran... eta aurrera beti.

Deun Kepa egunean be, done onen irudi edo relikia, kale zar batzuetatik erabilli, itxas agintari edo zeiñeruaren bizkarrean; su-ziri batzuk erre: anaidiko adarra jo; meza nagosia, Eupeme Deun Ziñ txandonean, arraintzale ildakoen gogo alde; gabaz dantzaketa batzuk lameran «y se acabo» Gero «San Juan» eta «San Pedro»ri arraiñ asko eskatu. Ori tranpia egitea da santuari. Biotzez eskatuten eztanak eztau baliyo.

Gure arraintzalien jasa guztiya galtzen asita dago. Obeto esateko: galduta daukogu. Ainbat ekandu eder albo batera itxita daukoguz. Itsutasuna berau.

Iru motatako arraintza ontziak dira Bermeo'n: Andiyak; erdikoak eta txikiak. Atun zale andi eta erdikoak urten dabie portutik Bizkai'ko itxas kolkora arraintza egiteko asmuz. Eta aurten ere entzungo dogu gure itxosoetatik norarte jatsi diran ontzi andiyetako mariñelak, Atlantiko barruan dogozan Portugal'en ugarteak baiño be askoz berago. Beti lez. Bai arraintzu ugariyak ere egiñ.

Ontzi txikiak be zur eta tente bizi dira, lo gitxi egin da aldi onetan. Laster entzungo dogu lenengo atunak errira ekarri dabienak euronak izan dirala. Obeto. Orretarako duaz itxasora eguneko alagora irabazten. Ondo ibilli ba danok eta, osasunagaz amaitu kosterea.

URKIDI

Segura

ESKERRIK ASKO

Zeraindar I. Olea olerkari bikañari. Zer dala-ta ordea? Azaldu dituan bertso eder-ederragaitik. Goyerriko «urretxindor» gure erria dala esaten ez digu ba! Oraingo ontantxe orratio-re gure erria ezagutzen ikasi bear diagu. Ona emen bere itzak:

«Baso mardulak txorien babes,
au da gauza derriorra,
ori izanik Egilleari
izadiak dion zorra.
Alderdi baten edertasuna
izan dediñ iraunkorra
atsegin gogoz ase bear du
bigun biotz sentikorra,
orregatik dauka Segura'n
Goierri'k urretxindorra».

Gure irratiari deitzen dio Legazpi'ñ bizi dan zeraindar jatorrak «urretxindorra». Eta gero, nolaz jardun ederki asko mintzatzen da. Ondo dakigu alaxe izaten sayako dala gure irrati berdin gabea.

ERRIKO PESTAK

Bukatu zitzaizkigun. Eskuetan degu egitaraua. Ederki egiña. Guretzat ume txistularien sayo ura ederrena. Pelotariak jator joka zuten...

Kanpotik etorritako bati entzun nionez beretzat Segura'ko ume guztiai euskera entzutea izan zala pozik aundiena. Bai, alaxe da, gaurkoz euskera degu garaille errian eta alaxe iraungo al du geroan ere.

Erriko jaien zabalkunde geixeago egin bear litzakela uste degu, beste errik egin oi duten bezela.

ONGI ETORRIA

Bijuakio emendikantxe gure Errukietxeko «etxekoandre» berri Aizpa Mari Ester Azurmendi'ri. Luzarorako izan dedilla gure artean. bertan dauden aitonamon, gaxo eta umeen onerako.

BETIKO JOANAK

Ditugu: amaika urteko mutikotxo Joxemari Galartza Oyarbide, gure aizkide on Joan Mari eta Karmen'en semetxo bakarra. Beren atsekabe aundian laguntzen diegu.

Baita ere Xegundo Legorburu, bere bizitzako 62'garren urtean; erriko alkate izana eta gizonki gaxotasun gogor bat illaurretik eramana. Bere emazte zintzo Juliana Balerdi, seme-alaba eta anai-arrebaei gure samiñ agurra.

Errian idazkari izandako Prantzisko Gorrotxategi auzoerri Zegama'n ill zan eta berak alaxe eskatuta, emen eortzi zuten.

Bere 90 urtetan Donostia'n illberri da Zubiaga'ren alargun Ana Imaz Iztueta Andre on-ona. Izatez segurarra, emen urte askotan notariotzan egon zan Luis Zubiaga Jaunaren emaztea izan zan. Emen duten illobian eortzi zuten eta gure elizan ere oi diran elizkizunak egin zizkioten. Bere seme-alabai eta gurean ditugun bere illoba Imaz-tarrei gure atsekabe agurrik biotzekuena. Goyan bego.

BURUAUSTE

Aundiak izan dituzte gure nekazariak aurtengo udaberri eta uda exkax oekiñ. Ez da gutxigurako. Izan ere egoaldi narraxak benetan egin dituanak. Eta gaitzerdi oraiñ berotu eta udazken epela izango ba'genduke.

Gaur gaur bezela beintzat oso atzeratua dator dana eta bultzara aundi-aundi baten bearrean dago. Etorriko al da.

MADURA-ZALE

Ondarroa

ONDARROAKO MONJAK

Orain artean beintzat, gure errietako monjak, geienetan, ikaragarrizko ostopo ta eragozpen izan dira euskerearentzako: Erlejiñoaren izenean edo batasunaren izenean edo bakearen izenean... edo nik ez dakit zenbat badezpadako *arrazoien izenean izango zan, baiña, dana dala, erdal-zale agertu izan dira beti.*

Onez gaiñera, Euskal-Erriko muiñ-muiñetako konbentu ta kolejioetan, naibeste monja erdaldun sartu izan dituez eta euskaldunak erdal-errietara bialdu... ez euskerari, ez giza-eskubideeri, ez erriaren izate ta nortasunari, ez ezeri begiratu barik.

Au, monjen nagusiak apropos edo konturatu barik egin egin daben, nik ez dakit, baiña naiz batera naiz bestera izan, eurak izan dira beintzat, sarri-askotan, euskeraren zapaltzaille ta erderaren biderik erosoenetarikoak.

Gaur gauzak beste modu baten dagozala esan leike, monja askoren artean, beintzat. Ondarroako monjak «Kurutzearen Alabak» dira (Hijas de la Cruz); ta monja onein artean be, beste zaletasun bat nabaritzen da euskera ta erriarenganako. Geienak euskaldunak dira ta euskaldun lez agertzen dira. Al daben guztia egiten dabe gure Eleiz-ikastoliari indarra emoteko. Ikastola-gela bi euren kolejioan daukaguz eta euren monja bat be andereño da.

Kristau-ikasbidea emoten asko ta asko laguntzen dauskue, bai parrokixan eta bai Kamiñaspi'n be.

Orrez gaiñera, erriko prolemakin be guztiz arduratuta dagoz. Orregatik euren kolejioa gaurko Irakaskintzako lege barrien menpean ipiñi dabe, ta «parbularioa» be eskatuta dauke. Ain zuzen be, erri bateko zeregiñik garrantzitsuena umien eziketea edo edukaziñoa dalako.

Ospitxala be eurak daroe ta guzti oneik gitxi balitzake lez, ume txikixak zaintzeko etxea be eurak zuzentzen dabe, ta zoragarri zuzendu be.

Nik diñodana siñisten ez dabenak, Ondarro'ara etorri ta ikustea baiño ez dauko.

Ondarro'ako monja oneik txalo asko merezi dabe ta ondarrutar guztion laguntasuna be bai. Bai, orixe.

GARITAONANDIA

Arrasate

IKASKETA BAT

«Sideko» alkarteak erri ontako gorabera ikaskintza bat egin du eta bertan aurkitzen dira zeastazun onexek: Errian bizi geranetik 10.000 euskaldunak gara, esateko erdiak inguru. Amar milla euskeraz dakigunak izanik ez da gutxi batez-e danok saiatuko bagiña euskeraz mintza eta arlo ortan jardun eta euskerari indarra ematen bakotxak bere aldetik alegiña egingo bagenu. Bestalde, erdiak inguru erritik kanpo jaioak gera baiña danak ez dira erdel-errietakoak. Bai-gera 4.000 inguru Euskalerriko semeak eta onegaz esan geinke irutik bi inguru euzkotarrak garala. Ea ba-da ba-daukagu nun lan egin gure erri au euzkotar eta euskaldun izan dedin betiko.

IDAZTI BARRIA

Labayen dar Andoni M.'ak liburu polit bat eskeñi dausku. Bere izena «Sasi-Batasuna» eta arloa, gaurko euskeldunen egoera itunari argi egiteko asmoz. Egilleak aztertu eta, —gaurko gora-bera asko itz gutxitan—, argitasun ugari ematen du. Danok erosi bear genuke eta nai duzuenak eskatu zuzenbide ontara: Paulo Kerexeta; Sancho Abarka, 1; MONDRAGON. Bere salneurria BOST OGERLEKO besterik ez da.

ALDAKETA

Martutene'n egun batzutan egon ondoren, Palencia'ra alduta da gure lagun eta euskaltzale dan Garay ta Bengoa'tar Yon Erramon. Bere gurasoak, Permin eta Begoña, «AGUR» onen irakurleak, arduraz beterik aurkitzen dira noiz etxean ikusiko. Sei illabete inguru egon bearko ei-du Palencia'n. Baita bere senide guztiok eta Yonetxu, itxaroten gagoz noiz etxean ikusiko gure artean.

OSTIKOKETA

Au idazten nagon une ontan Loyola Irratitik entzuten nago eta bertatik jakin dugu Aretxabaleta'ko UDA ostiko-saillak Euskalerri eta Espaiñi guziko txapeldun urten dala Murcia'an irabazita ango Imperial taldeari euren azkenengo jokaldian. Poztu naiz, ba-da, Aretxabaleta neure jaiotzerria izanik, nola poztu ez? Zorionak UDA'ri eta berebizi euren irakasle dan eta gure lagun Arriaran' dar Yon'eri.

EZ-BEARRAK

Ugarituaz doaz, batez-ere berebillekin. Uztailla'ren 14'an emengo Garagartza auzoan gogor zauritu ziran erri onetako gazte oneik: Zufiria'tar Pernando; Arregi'tar Jaurespene, ta Ortueta'tar Joseba M. Lenengo ori oso gaizki jaso zuten eta ilteko arrisku gogorrian. Beste biok ere txarto baiña ez ain gaizki. Otoi egiten dugu, Jaungoikoari, osatzera eldu ditezela lenbaitlen.

Baita andik egun bira beste ez-bear bat izan emengo Musakola auzoan, beste berebil alkar-jote. Onen artean emakume euskaldun bat oso zauritua izan zan.

Alperrik izango da, baiña emetik dei egiten diegu berebillen jabe direen guztiei arretaz ibilli ditezela euren ibillaldietan. Ikusten da nolako okerrak etorten diran eta etorri litezken.

UDALAITZ

Basauri

«Zergaitik Basoselay izena aldatu?» idazpurutzat ebala eskutitz agiri bat idatzi dautso Garil onen 17'gnean Bilbo' ko «Hoja de Lunes» asterokoan, erri onetako Baskonia ostikoketa bazkuneko lendakariai, Monasterio'tar F'ek; orain eta beti izan daben Basoselay (obeto idatzita Basozelai izango litzake) gureari «Pedro Lopez Kortazar» izenagaitik aldatu nai daben erabagia artu dabenez. Ezer onurakorrik egin izan ba'dau jaun orrek —danok dakigu egin ebazala— jaso dagitseela oroigailluren bat, igeki edo plaka naiz beste oroigarri onen bat, baiña Basozelai, jatorrizko izena, «Pedro Lopez» edo beste edozelako izenen bategaitik aldatu, ezelan be ez, ta abar.

Monasterio jauna basauritar jatorra da, eta, beraz, erriko bazter guztiak ondo ezagutzen ta maite dituana. Eta gure ustez egi osoagaz asarre agertzen da, ta gu be berakin gagoz arazo onetan. Jatorrizko izenak lotsaz ta adionez artu bear dira, ta Basozelai'k asko esan nai dau basauritar kiroldarrentzat; bertan sortu zalako eta bertan iraun dabelako Baskonia taldeak eta ostikoketa zaletasun guztiak.

Baso-basoa ez dakigu iñoiz izan dan Basozelai ta bere ingurua, baiña zugazti ederrak Basauri'ko goialditxu ortako mendian bai. Orain irurogei ta amar urte baiño geyago, Basozelai sortu zaneko, pizkaka, zelai aretan, aritz eta pagoak kenduten asiak ba'ziran be, ta ostikoketa zalaia pizkaka aunditu ta geroago be, inguru guztiak zugaitzez ederto apainduta aurkitzen ziran, eta bere egoaldera, arrune trokarte guztia, gaztaiñadi ederrez ia estalduta. Ortik dator, bear ba'da, ingura aren Gaztaiña-baltza izena.

Alan ba, Basozelai ta inguruko izenak ondo zustartuak dagoz jatorrizko basauritarren artean, ta orretara bear dau izan be.

Basauritarrak, naiko izen barregarri dago azken aldian erriko txaideetan, erriari ezer ez dirautsenak, geyago ipinten jarraitzeko sorlekuko jatorren ordez. Eutsi basauritarrak geure izen garbieri, gure Erria'ren zatiak dira-ta!

ALTUNA'TAR JOSU

Donosti

Agur «Soiñu-zale», lagun ona. Aste ontako AGUR'en irakurri degu zure iritzia, zein ederra! Gu ere ortan gaude: Euskera gogoz irakurri eta gogoz erabiltzeko erreztu egin bear degu, ez korapilloak jarri, zuk ondo esan dezun bezela.


Guk «Zeruko Argia»rekin ikasi gendun Euskeraz irakurtzen, eta gaur ere arzaille naiz, baiñan askotan ezin izaten degu asmatu nolako naspilla daukan, ta nola irakurri? Ni naiz.

ARANA'TAR JOSEBE

INSALUS
Urik garbiena ta osasungarriena

Mokoroa Aita'rekin

Alkar - Izketan III



8) «*Liburuaren azken-buruan*, ez arian eta bestela bezala» *ei dakartzun jazoera orretan, laprastada andiren bat egin dozu zeuk be, dirudianez.—Mitxelena'ren berbaz esateko*, «etxean otso eta kanpoan uso» *ibilli ete zaran susmoa artuta dago jentea, 397-398'gn.orr. diñoanetik.*

Parkatu-egizu barriro be; baiña Erroma'ko jazoeraz eta «euskaldunok jakin behar ez dugun» *beste orretzaz zer siñistu daikegun itandu barik ez gaukozuz barruan lasai zeure ezagun batzuk.*

Milla esker, galdera eder onegatik. Orra, nere iritzian-ere, zer egiten duan nor-dan gizonak, auzoan marmar itsusiren bat sortzen bada. Kulpa-gabeari oju ta izengaizto-ka eraso baiño len, garbitasunak eskatu, eman ditzakeanari. Gauza zer ta nola dan, dakianari galdetu.

Sortzen dan baiño naste edo iskanbilla gutxiago sortuko litzakela deritzat munduan, zuk orain egin dezuna bera egiten ikasiko balute eskola guztietako umeak, beren maisuengandik.

Egia esan, ni-ere kalean agertzeko baiño etxean gordeta egoteko obea negoan, Mitxelenak bizkarrera bota didan txalmarekin. Eta jabeari lenbait-len biurtzea obe ez ote nuan egiñez ari nintzan nere artean... Nola eztiot bada pozez erantzungo zure galdera leialari?

Jakin zazu beraz, eta kontua zuzen jakin nai dutenak jakin bezate, nere «liburuaren azken-buruan» eztedala nik **«ez-arian eta bestela bezala»** itz bakar bat sartu.

Liburu orren irakurle saiatuak ba zekiten 29-gn. orrialdetik, bidean zala azken-aldeko eraskiñ ori; ba zekiten eraberean zertara zetorren gutxi gora-beera, Gotzon Garitainandia zanari AGUR-erako orain bi urte neronek emandako erantzupenakin.

Ori orrela ezpalitz-ere, ez liket orain gezurra asmatzen utziko beste mundutik Gotzon zanak. Ezta bere eskuko letraz ezarrita utzi zizkidan galderak berak-ere. Mai-gaiñean dauzkat, eta bere begiz ikusi lezazke nork-nai, zuk orain bezela.

Mitxelena-ere, ni baiño buru txarragokoa ezpada, gogoan eukiko du oraindik, nork, noiz eta nora biali zion AGUR-eko bigarren itaunketa ori. Eta zeiñen eztiro erantzun zion berak, eskerrak emanez, bialtzailleari.

Nolatan ez ote zidan Mitxelenak garai artan Erroma-ko gertaeraz txintik atera?... Jaun aundiaren erantzuna **«euskaldunok jakin behar ez duguna»** zalakoan?... ¡Ez sinistu! Iñor-gutxik beziñ ondo ezagutzen ditu Mitxelenak izkuntza gurearen zizku ta zoko-moko guztiak; eta etziokean noski bere ikasleetako bakar bati orrelako porru-azirik ateratzen utziko, AGUR-en agertutako nere itz aetatik.

Garbi-askoak ziran itzak; inguru guzti oetako euskaldunontzat txit ezagunak; eta edozeiñen begirako-ere altzaki aundirik gabeak: «Ixil-ixilik entzun bear izan nizun gizajo onek jaun aundiaren erantzuna, **orain emen argitara ekartzekoa eztana».** ¡Orain eta emen! Nongo euskaldun garbik atera zezakean ortik, **«euskaldunak jakin bear** etzuten gauzaren bat esan zidatela Erroma-ko eliz-agintariak?...

Esateko on al dira Mitxelena-rentzat egi guztiak? **Nonnai, noiz-nai** ta **nori-nai** esateko on?... Orrenbeste ezaguera duan lagunik sortuko al zaio bere jarraitzailleen artean, iñoren premian balego oraindik, itsumen ortatik ateratzeko!...

Erantzupen ori kolkoan gordetzera, ez nauka bearturrik, ez iñork, ez ezerk. Eta eztira ain gutxi, lau urte ontan neronen aotik gertaera oso-osorik aditu dutenak. Aurrera-ere, etzait iruditzen itzegitea galaraziko didanik iñork, gauza naizen artean. (**Nor-danari itzegitea**..., esan nai det. Kontu oek ezpaitira jolaserakoak!).

Mitxelena bera agertzen bazait galdezka, egi-egietan esaten diot, eta sinistu beza: URSS eta RAU-ko artzai musumerke oriek elkarri ematen dakiten laztan gozorik eztu artuko nigandik; baiña bostekoa bai luzatuko diot, ez saldukeriz; eta bai gogotik estutuko-ere berea, eskaintzen badit. Gero, buruz-buru itzegingo degu, gizonak gizonari bezela. Eta eztet uste geiagoren-geiago berrituko didanik iñoren aurrean **uso-otsoen ateraldi motz ori!**...

Ez nintzan ni neure burutik joan Erroma-ra. Ezta Mitxelenak aitatzen dituan beste «kontseilarien» artean-ere. Ez bezait beraz «kontseilari» orien joan-etorrietako galderarik neri egin! Nik eztakit kontu orrenik ezer. Eta eztezaiola iñolaz-ere buruak eman eztabaidarik ateratzea neri, **kristau artaldea zaintzeko ardura zeiñi ta zeiñi utzi zien artzai guztien Artzaiak!**

Nere gaiñetik daudenen aginduz agertu bear izan nuan nere buru soilla goi-alde aetan. Zertara biali ninduten? Zergatik ni? ta zer egiteko an?... Betor lasai, eta utzi ditzagun beren garairako, oraingo eztiran kontuak.

Gauza bi esan nai dizkiot bitartean.—Bata: oraindik-orain beste norbaiti entzun-arazi dion egi galant-au, berak-ere erabilli dezala gogoan, urrengorako: **«Ixilik egotea obe izaten dala, eztakigunaz mintzatzea baiño».** Eta bestea: asi dedilla euskal-errietan zintzo-zintzo iritzi billa, mezetara jaiero joateko oitura galdu eztuan jendeari galdetuaz, ea itxura-gabeko gauzaren bat esan al nion arako jaun aundi ari Erroman, berak «Azken-orduko» artikulu orretan kopiatu gabe utzitako itzak esan nizkionean. Onako itz oek, esan nai det:

«Oso axaletik, edo ta barrenegitik begiratzen dionarentzat baizik eztala bat Euskal-erria, izkuntzaren aldetik-ere. Beraz, eliztarren izkuntzan egin bear baziran Elizako lanak, euskalki nagusienai bederen zabaltzeago utzi bear zitzaiokeala bere bidea, beste euskaldun guztiekiko artu-emanak aztu gabetanik-ere».

Nik-ere ba det emengo ta bestetako berri. Eta Erroma-ko jaun aundi ark-ere, polikixeago erantzungo zukeala uste det, gure erri batzuetako eliz-artzaien iritziak lau urtez aurretik jakiteko-diñ izan balitz...

9) 399'gn. orr. au diño Mitxelenak: «*Jakitekoa litzake zer pentsatzen duen* hitzaurrekoez *A, Mokoroak; beti uste izan baita badela, eta* behar duela izan halako gogaidetasun bat autore biziaren eta *lehen argitaratzaile eta* hitzaurregilearen artean».

Berak ez dautsu artez egiten itauna; baiña azken-berba bat egiguzu, arren, geuri orretzaz, ondo ba'deritxazu.

Begira, Xabier. Nik nai baiño askoz leku geiago artu bear izan dizuet AGUR-en; eta onezkero, aspertzeko lain eman zaie irakurleai. Mitxelena-ri ere pakeak eskaiñi dizkiot, eta ez nuke igurtziaren igurtziaz geiegi minberatu nai. Alik laburren itz batzuk esanda ixiltzera noa.

Autore biziaren eta bere argitaratzaillearen arteko lokarri orretaz-ere ez nator era-erara Mitxelena-rekin. Argia bera bat izanagatik, eztegu guztiok begi batez ikusten argia; eta norberari bere gain utzi bear zaiola deritzat, bere begiak zer ta nola ikusten duan esatea.

Nere liburuaren itz-aurrea, liburua bera argitan azaldu arte etzuten ikusi nere begiak; eta oraindik eztegu lagun biok ortaz jarduteko tarterik izan. Bakoitza bere lanekin, buruzgain ibiltzeko adiña izaten degu, batak eta besteak.

Eztakit Mitxelenak ikusiak ote zituan, bere liburu berria eguzkitara etorri zanetako, argitaratzailleak bota dizkion lore bikaiñak: **«Gaurko- betiko?- euskarak izan behar lukeanaren ispilurik garbiena, gardenena, ederrena. Euskara Batuaren errainu lausogabea»**... eta abar, eta abar...

Ezta-ere oraindik eztakit zeri esaten zaion Euskara Batua; ez zeri esan bear litzaioken-ere. Baiña, nork zer ikusteko du lore oriekin, loreen jabeak baizik?

Nere argitaratzailleak Jacques Monod artzen du aotan. Mediku jakintsu orren itzai pixua artzea bideago zan, beste iñori edo ezeri baiño. Monod orren liburu berri bat emen det; eta ia berrogei urte dirala Argentina-ko eritegi batean gaxo-zaintzan egondako monja bati ikasitako gertaera bi gogorazi dizkit maisu frantses orrek. Bata, irurogei urtetik gorako amona batena. Aiton euskaldun batena bestea.

Amona ori, bost edo sei urteko umea zala ekarri-azi zuan beregana Frantziatik, umezurtz gelditu zalako, bere izeba argentinar batek. Bere frantses-kutsu guztiak laster galdu zituan umeak, eta etzuan geiago sekula frantsesik egin bere denboran... iltzeko bezpera arte... Azken ordu aetan, asi zitzaien bat-batetan frantsesez itzegiten gaxoa! (Nunbait gordea zeukan bere txikitako frantsesa).

Aitona, berez euskald na zanik, etzekian iñork auzoan. Elizatik aldendua gizajoa, beste asko bezela...; eta elizakoak artzera errenditu nai ez. Ontan, eztakit zein apaiz edo fraile euskaldun etorrita, norbaitekin euskeraz asi da au... Aitonak burua altxa du, apaiza asi zaio berari-ere euskeraz... eta... «otso-larruz jantzitako ardizarra» bezin gozaro jartzen da apaizaren eskuetan, nai duan guztia egin dezala berarekin...

Kontu oek aitatu dizkiot lengo batean adiskide napar bati, eta... zer uste dezu ekarri didala eskuetara? Oscar Gonzalez Quevedo jesuitaren liburu ikusgarri bat: «El rostro oculto de la mente». Iritxi naiz 130-gn. orrira, eta... ¡non begiak ematen didan nere monjatxoaren gertaerak bezelako askoren berri, ez non ta ez an...! Freenorb H.-ren ingeleszko tituludun lan batetik artuak, berak: **«Temporary reminiscence of a long forgotten language during the delirium of broncho-pneumonia»**, 1902. Jesuitaren liburuak zortzi edizio izan ditu oraintxe, lau urteen buruan. Eta **Sal Terrae**-ri eskatu besterik eztu, irakurri nai duanak.

Mitxelena: Hamlet-ek Horatio-ri esan zion egi aundi-ura gogorazi bearko dizut nik-ere, beste norbaitek beste itxura batean gogorazi omen dizuna:

«There are more things in heaven and earth, Horatio, than are dreamt of in your Philosophy»...

• • •

Orra irakurle, emen amaitzen da itaunketa au. Euskerearen arlo onetan apur bat sartuta gabiltzanontzat onurakorra izango zala uste dot, gaur Euskalerrian ospetsuenetarikoa dan jakitsu onen eratzunak ezagutzea.

Ta, nik emendik: milla esker Mokoroa Aita; nire ta beste euskatzale askoren gose-egarriak asetu dozuz oraingoz, baiña ez zaitez ixildu onen ondoren. Gure Euskalerriak gaur gizon aundiak izan arren, euren eretxien bearrean dago-ta.

Itaunketa onen asieran esan neban lez, ez neuke nai jakitun bion artean nastatzaille agertu. Nire asmoa, Mitxelena jaunaren idaztia irakurri ondoren sortu eustazan kezkak argitzea zan; eta nire buruan, ezta unetxo baten be, ez dot izan iñor minduteko asmorik. Beraz, iñori okerrik egin ba' dautsot, parkatzeko eskatzen dautset.

Jakitun bion artean sortu dan eztabaida au Euskalerriarentzat onurakorra izango ete-da? Nik baietz uste dot. Gaur euskera arloko goraberetan eztabiltzazanak, alkar-joten gabiltzazala uste izango dabe; baiña euskerearen gaurko giro onetan alde baten edo bestean dagozanak, eztabaida onetatik sortu al izango zan argi barria ikusiko dabela uste dot. Alan izan dedilla!

GOIRIGOLZARRI'TAR XABIER

TRUEBA'TAR ANTONIO II

Albistari-izparlari idazlea zan Trueba, onelaz, konta ezin ala idazlan eta azalpen idatzi ebazan izparringietan. Baita egin be antzoki idazlan bi be: «El tiro por la culata» eta «La oficiosa». Baiña ez zan zeregin au gure idazlariarena. Berak idatzi, marraztu ta azaldu ebazan Bizkai'ko ta Euskalerriko oituren barriak emon eutsoen izen-omena ta entzute andia. Edestia izan zan bere idazlantza ugaria. Kondairari buruz idatzitakoak milla baiño geiago dira.

Ala ta be, ez jako deitzen Trueba'ri kondairalaria, kondairako albiste ta egiteen zabaltzaillea baiño. Kantak, olerki, erri-bertsoak, ipuiñak-eta idatzi ebazan bereziz. Au izan zan bere arazo garaiena ta nabarmenena; orrek emon eutson entzute durundutsua.

«Ipuin, poesi, kantak, erriko usain-gozoz kutsutuak; nere eramoduz egindakoak, Jainkoak argitzen daustazan lez; erriak bereak egiten dauazan lez, nere bertsoak, ez burutik, biotz erditik ateratzen dira».

Ta ara zer diñoskun bere bertsoetan:

«Jainkoak gura dabelako nik
abesten,
Txori-egaztiak lez kantatzen dot».

Bere bizitzan iru maitasun jaubetu jakozan: aberri maitasuna, sendi maitasuna ta Jainko maitasuna. Maitasun oneitan beti billatzen eban bere idazlanentzako argitasuna ta idatz-iturria. Orrein indarrez bultzatuta ta argituta gozoki idazten eban, baita argi ta garbi; lupetzetan, garraztasunetan, zapuzkerietan eta okerkerietan bere lumea iñoiz busti barik. Eztenkadarik ez, ez irri-barre mingorrik be, ezta gorrotokeririk; argia, garbia, zintzoa ta arteza ez zana ukatu egiten eban. Bere jarraibide ta amets-elburuak, begionean, leñargian, ontasunean eta samurtasunean beti izan ebazan. Biotz onentzat idatzi eban.

Baiña Trueba andiaren lan eginkari ta ezaugarriena, berezigarriena batez be euskaldunentzat, lur literatur arloan Euskalerria ezagutu arazo, zabaldu ta goi-mailletara jaso eban bere lana izan zan. Ta onetzaz urrengoan jarraituko dot.

LETONA

AGVR

III URTEA
52 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - IRAILLA - 9

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ZUR!

Zurra izatea batzutan buru argiduna izatea lez artzen da. Gure mutilla zurra da!, esaten dabe guraso askok.

Beste batzutan, bere elburuak lortzeko bideak artzeko eta eragozpenak kentzeko trebea dan gizona zurra dala esaten dogu. Auxe da gaur berba onen bidez esan eta agertu gura doguna. Elburu bat bear dogu Errian, eta ori lortzeko gero bideak billatu, biderik onenak eta laburrenak. Ori da gure zurtasuna.

Bakotxak bere bizitzan bearrezkoa dau zurtasuna. Aurrera jo bear ba'dogu, zurtasunez jokatu bear dogu: geure barruan, geure inguruan, oztopo guztiak kenduaz.

Erriak ete aberriak be gizartean aurrera egin gura ba'dabe, zurtasuna bearrezkoa dabe. «Taktika» bat artu bear da, erabide bat. Au ez da, gero, maltzurkeria. Euskalduna, berez, ez da maltzurra, baiña zurtasunez jokatu bearrean aurkitzen da, gaur iñoz baiño geiago. Zeintzuk diran gizartean aurrera egiteko bideak, ondo aztertu bear dau, baita ausnartu be.

* * *

Itsuak garala entzutea daukagu munduan, eta itsutasun orrek alkar-jote gogorretara garoazela diñoe. Egia ete da? Berbakoak garala, ezin ukatu; adoretsuak garala, zabal dabil; ziri bakoak garala, goazen toki guztietan entzuten dogu. Baiña itsuak be ete gara? Ba leiteke guk orretarako arriskuren bat eukitea. Zabaldu daiguzen, ba, gure begiak, zurtu gaitezan.

Lenengo, elburuak aukeratu daiguzen: Jabetasunagaz zelako Erria egingo geunke? Gizarte-zalea ala domu-zalea? Politikan, errikoia ala agintaripekoa? Erlejiñoan, aundizalea ta agintariakaz baterakoa, ala askatasunezkoa? Jakintzan, euskalduna ala orokorra? Irakurlerik geienak itaun onei erantzun erreza emongo dautsoe, baiña asko, bear ba'da, jabetasunari begira zoratuta dagoz. Orretarako iraulketa bat egiteko gertu be bai, baiña gero zer edo zelan izango dan aztertu barik. Zurtasungekeria litzake, edo ketokeri bildurgarria: gerorako eginbide barik, bidea egitea.

* * *

Gai onei buruz Erria bera zurtu bear da. Euskaldun askoren buruak, oindiño, zarren eretxipean dagoz, batez be gure baserrietan. Edo ezelako ardurarik barik. Eta arazoa sakona da. Zurtu bearra, il edo biziko gauzea da. Zurtu daigun Erria.

Erritik eta Errirako, gero, jakitunak agertuko dira. Erri zurrak berak emongo ditu eta beretzat izango dira.

Ba dira, gure artean oneinlako jakitunak, baiña geienak Erria ez dabe maite, iñorganduta «alienatuta» dagoz, eta orreik ez dauskue laguntzen. Jakitun errikoiak sortu bear ditu gure Erriak, edo Erri galdua izango da.

Jakitunak irakaskintzarako eta gorengo maillako euskal-ikastetxe bat sortzeko. Ba doguz batzuk, baiña ugaritu egin bear.

Jakitunak gizarte-arazoetarako, gaur ain bearrezko dan arazoa da au. Ete dago gai onetan euskal-jakitun argirik?


Jakitunak agintaritzarako, bai gaia sakontzeko, baita agintzeko be. Onetan be gure Erria ez da arduratzen eta agintari agiriak iñorganduta agertzen jakuz.

Jakitunak errien arteko artu-emonetarako. Oneik maltzurrak izaten dira, baiña maltzurren artean zurtasun berezi bat bear dogu.

Eta jakitunak zenbat gauzatarako! Lenengo egin bear dogun iraulketea jakintzarena da, eta au izango da beste iraulketa guztien zusterra ta oiñarria.

Zurtu gaitezan eta ez itsutu. Elburuak aukeratu, ta gero euretara eltzeko bideak artu, baiña ZUR!

AGVR



Ondarrabi, Zarautz, Bermeo, Zestua... udeari agur egiteko edo luzatzen alegintzeko asmatutako Andra-Mari'ren jaiak... Bitartean, oporretan lanean (argazkian), Oñatibia jaunak eskeintzen dauskun euskera irakasteko bide barrien saioa Zarautz'en, Ikastola-arduradunen aurrean: JOLAS-BIDEZ.

TA IKASIAK, ZER?

Gure euskera eder eta maitea galduaz doalako negar dagigu. Zerbait errudun guztiok gara, dakigunok be euskera gutxi darabilgu-ta; baiña geien bat —parkatu au nere eretxi bat dalako, ta izan leiteke ni oker egotea— ikasketa nagusiak egin dituenak izan dira errudun.

Alde batetik, Euskalerriko idazle jakitun geienak, euren lanak, erderaz argitaldu ditue, ta beste aldetik, euskeraz mintzatzeari gutxi deritze. Ta, erri zeeak, jakitun orreik, bai gizon bai emakumeak, beti erderaz diarduela ikusirik, euskerea txiroa, txarra ta motroilloa dala siñistu dabe euren barruen.

Gure erriko gizon jakitunak —esate baterako: Unamuno, Baroja tab.— beti euskeraz idatzi izan ba'lebe, ta euskeraz jardun, beste txoritxo batek abestuko euskun gaur. Orain, lenago baiño gazte geiago doa ikasketa nagusiak egitera, baiña nire ustez, dirua irabaztearren bakarrik, orregaitik ez dabe euskerea landuten, bai baiña, euskaldunak izan arren, jakintzearen izenean, euren etxe, erri ta baserrietan erderea sartu.

Euskera gaixoa, jakitun askoren bearrean aurkitzen da. Gure artean, onelako euskerea dala ta orrelako euskerea dala, jakitun gutxi dirala ikusten dogu. Ta Euskeran landuak gutxi diralako, euskaldun barri batzuk, jakitun bezela, maixu argertzen jakuz, gure errian iskanbilla ikaragarria sortuaz. Ta ikaskuntza nagusirik ez daben ainbat gazte ederrak maixu barri orreik mitotzat artu ditu.

Jaunari eskerrak, euskerea benetan maite daben eta bere alde zerbait egiten asi diran euskaldun jakitun batzuk ba-ditugu orain; oneik ugaritu bear dira, gure erri ezjakiñak, eurok ikustean, euskerea beste izkuntzak bezin ederra ta aberatsa dala siñistu dagian.

Ikastetxe nagusietara doazan erri ta baserrietako euskaldun gazteak ere itxartu beitez, ta euren ikasketa-karrereagaz batera euskerea landu beie. Eliz-gizon askok bide ori artu dabe, ta osagille, lege-gizon, etxegin ta enparau guztiak be, ainbat lasterren, jokera ori artu beie.

Oarra.—Itzez eta eskutitzez auxe esaten dauste sarritan: «beti euskerearen alde zabiz eta ez da ori abadearen egin bearra». Berberori esan eban bein Gotzain batek, ta nire erantzuna: «Eliz-gizon eta enparau euskaldun guztiok euskerearen alde lan egitera beartuta gagoz». Abade bezela geiago, abadearen gorengo eginbearra kristautasuna erein, zabaldu ta sakondutea da, ta nire uste ziurra au da: euskera errikoiagaz —oraingo euskera barri batzukaz zer jazoko dan ez dakit— sartu zan euskal biotzetan kristautasuna, ta euskerea geiago ta geiago erabilliagaz, kristautasuna geiago biztu ta indartuko da. Orra or zergaitik, abadeak, euskeraren alde lan egin!

GALLASTEGI'TAR KAULDI

BETI BAT!

Joan dan asteko gaiari oratuz, lengo aritik jarraitzea komeni dala deritzot. Ez ipuinlari merke bateri garrantzirik emotearren, orren antzeko asmatzailleak zelakoak diran erakusteko baiño.

Ez da Ukronia deritxoena lenengo asmakizun euskal-etsai ganorabakoa izan, ez. Beti izan dira olakoak, diñoenez bai guda aurrean baita guda ostean be. Ertz batekoak naiz bestekoak, orrein barruko arra odol batekoa izan da beti-ta. Batzuk, ezagun-ezagunak izanik, aitatzea alperrikoa litzake, baiña ezkutuko orreik ez dira obeak izan.

Lengoak erdi azturik egozala, amar bat urte dira Krutwig'ek bere «Vasconia» idatzi ebala. Ez dogu iñoiz uste izan egille bakarreko «arrautzea» zanik, ez orixe! Lan-laguntza ta diru-laguntza asarrepekoa ta ugaria izan ebala Donosti'ko berebil elegantedun burges batzuengadik, entzuna dogu; diru orreik zulodun sakeletan erabilli zirala be bai; betiko bostgarren «kolumnatarrak» makiñaz jartzen eta zabalkundea egiten lagundu eutsoela be bai... baiña ez eban iñork aurrez-aurre aurpegirik emon izan nai, ezta nastean sartuta agertu nai be. Ba-ekien, euskaldun geienok sutuko giñala irakurtzean, ta oraindik ariñegi izan orduan, goizegi. Geienok sutuko giñala, esan dot, baiña ez danak.

Aldi aretan be, batzu-batzuk, «buru-zuriketan» jardun eben, olakorik ez zala idatzi bear esanaz; beste batzuk, gauza batzuetan, askotan, arrazoi ebala, ez danean baiña. Bitartean, bostgarrenista bildurti orreik zabaltzen ebiltzan. A bai abillidadea!

Baiña, urteak joan, urteak etorri, Krutwig'ek euskereari buruz agertu euskuzan iritziak, zoritxarreko euskera «batu» diralako orreitan onartuak izan dira. Baiona'ko batzarretan, iturburu ortako urakin egindako pertza ozalak eskeiñi euskuezan. An artutako erabakieri bear eben apaintasuna emoteko Ermu'ko ta Arantzatzu'ko «antzerki» usaiñezko batzarrak egin ziran. Baiona'ko araueri, lendik makurtuta egoan Mitxelena bera be. Jakiña! ango «nastatzailleen» opil a ezin izan, oso-osoan, Mitxelena'ren gustokoa, baiña... nork biztu ete eban laba-sua bear zan baiño egur geiago emonaz?

Gaur, edonun ikusten diran «buru-zurikita» orreitan; Zeruko-Argia'n Errialde'k Etxaniz jaunari egindako itaunketen antzekoak irakurri geinkez: «euskerantoa» iruditzen al zaizu Mitxelena'ren euskera batua?» Ta zer erantzungo eban ba Nemesio jaunak... Mitxelena'k ondo idazten dabela, baiña bere izenagaz baliatzen diranen euskera «batuak», baietz. Ta, zenbat ete dira ba? Ta, lortuko al da batasunik? Ez tamalez, ta lortuko ba'litz be, «trulala» koak beste bat asmatuko leukee batasun ori apurtzeko.

Ez gaitezan baiña aritik aldendu. Emen agertu izan dodana auxe da: Ukronia'ren egillea ta ukronianoen iritxiak ez dirala gaurkoak, eta gure artean diran «egaberak», larregi... beti lez! Errizaletasun-eza ta etsaitza argi ta garbi erakutsi arren, «linboa» baldin ba'da, euskaldunez beterik izango litzake... euskerazkorik ez dabelako irakurten!

«Mutil onak dituk; ba-dakik ba, gazteak dituk eta»... eta barriro losorroan, atseden zoragarrian! Jainkoari eskerrak, mutil on eta gazte asko dira aixeriari buztana ikusi ondoren, igarri dautsenak. Aixeri orreik ez dira ez baketsu etorri gure artaldera, aixeriak diranez. Ardi narruz jantzi ta euskaldun itxuraz etorri arren, ez dira iñoiz gureak izan. Noizik bein ardi kokoloren batzuk artaldetik ateratzera etorriak dituzue; baita lortu be!

Zer egin olakoekin? Bakoitzaren iritziak alde batera itzi ta batu al-leikezanak, eta alkar-izketa zintzoen bidez alkar-ezagutu ta beste orreri bizkarra emon oso-osoan. Egoaldeko soiñuak ez dirala gureak, adierazo, naizta «soiñulariak» noizik bein, arkondarearen margoa aldatuta agertu.

Argi dago? Ea ba!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

AMA AL ZAITUGU?

—Au poza! Ez dut nai bezin laister euskera entzun Donosti'ko kalean.

—Nor zaitugu? Ziurki aspalditik emendik urrun egon zeran euskaldun bat...

—Oker zaudete adiskideak; Ama Euskera nazute ta aspalditxo onetan mendi-errietan goxoki bizi izan naiz, baiñan kalera jo dut, euskerari berpiztu bat emateko asmotan.

—Euskera berpiztu? Ez al duzu entzun zer dioten?

—Zer diote ba?

—Mito bat dala Euskera...

—Mito... miko! Zer da ori?

—Euskeraz ipuia esan oi dogu.

—Ipuia beraz euskera! Ainbat euskaldunek erabiltzen duten euskera, ipuia? Tente jaso lezake euskerak bere burua izkuntzeen batzarrean; ez da arlotea besteen ondoan.

—Zoritxarrez gero ta gutxigo gera euskeraz mintzatzen geranak.

—Orrexegatik natorkizue mendietako kabi goxoak utzita. Bai, kaletan bizi zeratenoi eragitera etorri naiz, danok berriro gogotik euskeraz mintzatu zaitezten ta orrela berpiztu euskera indartsu.

—Lan gaitza jotzen dugu orixe; izan ere ainbat erdaldun etorri dira gurera, ta oyekin nasi gureak ere erderara jo dute.

—Suzpertu zaitezte, maiteok, ta euskeraz mintzatu azi danai. Bai, erabilli beti euskera, ta ez aztu Europa'ko pitxirik ederrena darabilkizutela zuen ezpaiñetan ta danai estima azi pitxi ori. Zabaldu Donosti'n semeok zuekin duzutela Ama Euskera ta berriro naiduala Donosti'ko karrika, denda, ardandegi ta etxetan barra-barra euskera entzutea.

—Ber-bertatik ekingo diogu kalez kale berri au zabaltzen.

—Orixe egin zuten gizaldi onen asieran seme jator askok ta berebiziko berpiztua eman zidaten batez ere idazti ta izparringietan.

—Zer dizkiozu gaurko idazle asko ta zenbait izparringiaz?

—Etzaizkit batere atsegin zenbait idazle; gutxigo berriz zenbait asteroko; izan ere ez bai dute idazle oyek barra-barra euskeraz mintzatzen, ta bai joskeran ta bai itzetan erdera usaia zabaltzen dute.

—Ze aolku emango lieke orrelakoai?

—Bat bakarra danoi: erabilli nazazute ordu oro zuen ezpaiñetan ta ondoren tajuz idatziko duzute.

—Ez al die izparringien zuzendariei ezer esan bear?

—Jardun luze bat egin bear dut oyekin; oyetxek bai dira bizia eman edo kenduko didatenak era batera edo bestera jokatuta.

—Ze esaten digu euskaldun idazleai?

—Auxe: Aztertu iztegiak eta euskaldun guziak geyenbat erabiltzen dituzten itzak erabilli idazten dezutenean. Arreta aundia jarri euskerazko joskeraz idazteko. Orrela zuen lanak izan ditezela errexak ta gozoak irakurtzeko ta aditzeko.

R. MURUA JAUNAK

KAMIÑAZPI'RI TXANTELKA

Aspaldion eta idatzietan «txartela» irakurten dot. Ez dot iñoz uste izan itz ori jatorra ez danik. Baiña AGUR'en 49'gn zenbakian «Kamiñazpi»ren idaz-lan baten «txartela» ta «txantela» bat dirala irakurri dot. Eta ori zustraiz agertzen dau.

Neu be orretan nengoan. Baiña argitasun apur bat dakardalakoan gure gaztetako jolas bat agertu nai neuskio «Kamiñazpi»ri.

Gu, gure gaztaroan txantelka jolastuten giñan. Zer zan ori?

Txantelak mixto-kutxatxuen alderdirik zabalen biak ziran. Kutxa bakotxak txantel bi eukazan ba. Eta txantel orreik aberastasun bat ziran, asko eukiteak trebetasuna adierazoten eban-eta. Dirudunak, txantelakaz barik, diruagaz jolastuten ziran, eta joko orreri «grasara» esaten eutsoen.

Txantelka egiteko jokolari bakotxak txantel bat izten eban «grasan». Grasea eleizpean egoan lauki bat zan, arrizko bean, eta laukietarik txikiena. Gero jokolariak gomazko tretxu bat jaurtiten eben, oiñetakoen azpitik artua, ta sei bat metrora egoan mugara geien urreratzen zana izaten zan grasara lenengo jaurtiten ebana. Gero, urrengorik urrengora.

Jaurtitze onetan txantelak grasatik atera bear izaten ziran, lenengoan ezin ba'zan, gero besteak urrengorik urrengora, ta barriro, txantel guztiak atera arte. Eta amaitzen ziranean barriekin asi jokoa. Joko ori zala-ta, batzuk aberastu egiten ziran, txantel asko irabazten eben, eta beste batzuk, aitak mixto-kutxea amaitu arte itxaron bear edo beste mixto azalen batzuk billatu bear.

Eta pazkoakoa egiteko be, lenengo, txantela artu bear izaten zan. Eta ori zala-ta, zenbat erantzun barregarri emoten ziran! Baiña gure inguruko errietan «txartela» zer dan iñork ez daki. Itz ori jatorra dalakoan nago, baiña guk beti «txantela» esaten dogu.

Txantelka eta grasara, geuk zergaitik zan jakin barik, beti neguan egiten zan, udan lan geiago gendualako-edo. Neguko jokoa zan ba. Eta udan uger egin, uragan edo arrankari-billa zubi barri inguruan, arrankariak baiño loiñak sarriago.

«Txantela» gaur galduez doa, ta «txartela» zabalduez. Baiña guk beti txantela esan dogu. Bizi bediz biak, al ba'da, ta «txantelak» il bear ba'dau, bere illetea abestuko dogu.

GAMIZ

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

SASKI - NASKI

Eskura orri bat iritxi zait. Irakurri baiño len bere berri ba-nun. Bertan aitatzen danaren berri ere bai. Gezurra dirudi, gure artean, azpijanez eta abar, egiten ari diran lana. Andoain'go ikastolan gertatutako arazo bat agertzen du orri onek; baiña nola! Asieran «berak» esandakoa, «beroiek» ezeztatzen dute gero; jakiña gezur eta saltzakin dabillena... «Andoain'en zazpi irakasle bota dituzte», dio. Au dala uste det, dion egi bakarra, eta onela jarraitzen du: Zuzendaritzak esan duna «irakasle oiek ez dutela erlijiorik eman nai» gezurra da. Baiña irakurtzen jarraitu, ta argi-argi ageri da «erlijioarekin» ez dutela ezer jakin nai.

An gertatu dana, gutxi gora-bera, au izan da: Naspilla zebilkiten itxuraz, eta Zuzendaritza batzartu, eta bat ez besteak iritzi berekoak izanik, «erlijioa» irakasten jarraitzea erabaki zuten. «Zazpi irakasle» oiek berean *jarraitu... Berak izan dira beraz beren burua bota dutenak.*

Jarraitu zagun «orri»en beste esanekin: «Ikastola Herrikoi eta demokratikoa izan behar duela diogu»; eta berriro: «iritzi ezberdiñekoak eratzen degu herria, nahi ta nahiez». Bai noski! Irakasle oiek eta beren iritzikoak, egin bezate «beren erako ikastola». Baiña beren iritziak eta elburuak argi adieraziaz, eta BERAK eratutako ikastoletan; ez ordea BESTEENETAN sartu... eta beren ezikera, beren euskera, beren iritziak, guztien aurka, «demokraziaren» izenean sartu, edo alegiñak egin beintzat. Eta txarrena, kaltegarriena, beren asmoak eta elburuak iñoiz ere argi agertu gabe. Beste gauzen artean, au ere bota digute: «Gauza bera Arrasate, Donostia, Zumaya, etab. gertatuak dire».

Nik ezin esan, Arrasate, Zumaia'n orrelakorik gertatu dan ala ez (poztuko nintzake ala ba'litz) baiña Donosti'n, zoritxarrez, alderantziz izan da gertaera. Ikastola batean (len, beste idazlan batean adierazia det gertaera au) ederki lanean ari zan ikastola batean sartu eta bertako irakasleak, «euskerantoa» eta «orrelakoak» onartzen etzituztelako, bota arte etziran gelditu. Zer derizkiozute? Orrelaxe esaten dituzte gauzak, baiña, zoritxarrez, beren gezurrekin, asko atzipetu eta nastutzen dituzte.

Oraintxe bai, alde guzietatik gezurra eta naspilla besterik ez degula... orain arte naikoa ez ba'genu bezela! Baiña egiñalean aurrera jo dezagun! Au idatzi ta gero, azkeneko «Agur»en Arenaza'tar Josu'k idatzitakoa irakurri det: «Jainko bako ikastolak nai dituztenak, eskubide osoa daukie; gertatu bekiez eurenak, eta ez iñoren izerditik lodituta». Nere idazlanean ere, gutxi gora-bera ori adierazi nai izan det, baiña ala ere ASKOK ez dute ulertzen! Berriz eta berriz esanda ere: «Kontuz, gurasoak. Ez itxutu euskal ikastola *dala ta besterik gabe. Ondo ikusi nolako ikastola dan, zuen aurrak bertara bialdu baiño len».*

* * *

«Sasi batasuna» idaztitxoa irakurri det. Ba-degu orrelakoen bearra! Oraingo gertaeratzaz euskerari buruz pixka bat beiñepein kezkatzen danak, bertan arkituko du argitasuna. Guziak, euskera egiz maite duten guztiak, irakurri bear lukete au eta Aita Mokoroa'ren «El euskera de hoy y de mañana» izenekoa. Orain dabilkigun arazo onen garrantzia euzkotar guziak ikusiko ba'lute!...

Idaztia oso ederra da, gauza guzietan bat ez banator ere. Onetan adibidez: «Es cierto que nuestros puristas, pecaron por el extremo opuesto; y su trabajo fue por ello poco provechoso, cuando no inútil o perjudicial». Ni ere «purista» aien ondorengo ta jarraitzaille izaki nunbait eta ezin ulertu nolako edo zer eratako kaltea egin zezaioketen euskerari. Beren lana auxe izan zan, nere ustez, euskera GARBITU. Oben astun (pekatu mortala *esan bear ote det euskerari kalterik ez egiteko?) OBEN ASTUN ikaragarria, euskera garbitu! Aurreraxeago au dio, «Se olvida que la misión de toda Academia y no tan solo de la española es la de su lema: limpia fija y da esplendor». Eta au,* auxe *egiten ari ziranengatik zer esan bear da orduan? Euskera erdel kutsuz, itzez, esaeraz garbitu... au txarra al da? Beste gauzatxo batzuetan ere ez nator bat, baiña guztira oso lan ederra egin dula derizkiot.*

Mitxelena aitatzen du idaztitxoan eta nere iritzia agertu nai nuke nik ere. «JAUNGOIKOTU» egin dute jaun au nere ustez: eta onetxegatik, oraingo egoera edo arazo ontan, zer ikusi eta erru aundia du. Bere kideko jakintsurik iñoiz ere izan ez dala dirudi. Eta orrelaxe artzen dituzte askok bere esanak, jakintsu aundiena, ia ia utseziña *ba'litz bezelaxe. Jakintsua ez danik eztet esan nai, onekin, baiña, euskera gaiean, bera aiña, edo geiago oraindik, bera baiño aundiagoak izan dirala, eta zorionez, orain ere ba-ditugula, zalantzarik gabe esan ditekela uste det.*

Emen, «Agur» gure aldizkarian, «Luzear» zanaren eta beste batzuen irakaskizunak aztu zitula esan zion norbaitek. Ni «Luzear»en alaba nauzu Mitxelena! Bera, LUZEAR bizi ba'litz, zer iritzi izango luke oraingo auzi onetan? Zer esango luke H'az eta oraindik txarragoak diran, itz, esaera... itz batean «euskeranto» edo «erderanto»az? Zer derizkiozu? Ni beiñepin arrituta nauka zure oraingo, azken urte auetako, ekintzak. Arrituta eta atsekabetuta!

AMALE'K

POZAK ETA KEZKAK

Donosti'ko kaleetan entzuna:

—Aizu, Ira, Arenaza ez al da bizkaitarra?

—Bai orixe.

—Bizkaieraz idazten al du, ba?

Bejondeikela, Josu, ori dek ori, euskeraren alde jokatzea. Erriaren aotik irtena dek «Bizkaieraz idazten al du, ba» ori. Aixa irakurri bear ire «AGUR»eko lanak Astigarraga'ko gure giputx jatorrak, gipuzkeraz ari intzala uste al izateko. Ainbeste zitalkerien artean, pozgarri bekik erri-erriaren aotik irtendako aitorpen au. Aitorpen goragarria.

* * *

Entzun, lagun, entzun! Naskatu aute «alu» oyek; baiña ire lagun berri ori, esanak esan, zinpekoa dek, eta kontuz!

* * *

Alfaerderatze kanpaina.—Gernika'n jazoa. Gizarte etxean, «alfabetatze kanpaina»ko itzlariak: Manolo Berriatua, franziskotarra —abandotarraren izen usaiña kenduko eban oiñezkero—. Itz aldia entzun ondoren, entzule batek, jaiki, eta diñotso: «Euskera, prantzesera ta gaztelera jakin bear ei dira zuen euskera «batua» ulertzeko. Nik irurok dakidaz, baiña ez dot zuen aldizkarikoa ulertu al izaten». Eta Berriatua'k orduan: «Nik bere ez». Zertan dabil ba orduan gure «sacerdotea»?

* * *

Ametsa.—Lsd'a artu ondoren lo dago idazle bat. Amesetan, bere lagun daben «malgizon»a ikusten du onen alaberi euskerea irakasten. Nola izan leiteke ori? pentzatzen du, Malgizon'ek nik baiño obeto daki «Shanti Matrailla» ta beste adiskideak asarretuko jakozala... Ondo dago euskerea ikurtzat artzea, baiña etxeko umeeri olakorik erakutsi? Olako arrazakeri burgesik!

Urrengo egunean, esnatu zanean «drogadiktoak»: «Ez dago bildurrik, Malgizon'en seme-alabak erdeldun jarraitzen dabe...» «pestaña contra pestaña» baiña ez lau izkuntzadun.

PIPER-ZIRI

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18 **E I B A R**

GAZTE

EUSKEREAREN NEGARRA

Olerkaria ez nazala ondo dakizue: bai zuok, irakurle maiteok, baita ere zuok AGUR'eko adizkideok. Baiña gaur, ez dakit zelan edo zegaitik, olerkaria somatu naz. Nire bertsoak ez dabe neurririk; neurri gabekoak dira. Baiña oneri, bere garrantzia euki arren be, ez dautsot jaramonik egin. Urten daben bezela jarriko dodaz.

Nire ustez, bertso onek daben onena au da: esanaia. Uste dot, bertso onetan euskal gaztediari dei bat aurkitu leitekela. Euskerearen dei bat; gure izkuntzaren karraxi latz eta astun bat. Entzun dagigun dei ori eta zabaldu daiguzan biotzak gure ama euskereari!

Atez atez zure billa...
Kale ontan erdi illa.
Jo ta jo baiña alperrik,
Ez dozu zabaltzen aterik.

Nire negar ixilla
Iñork ez dau aditzen.
Nun dago nire gaztedia?
Ez ete da nigaz oroitzen?

Eta zu, Euskal-Erri'ko seme...
Zergaitik utzi nazu?
Egunak erre ta erre...
Nire bizitza ardura ete jatzu?

Zertarako gezurti izan!
Enaz maitatua zure etxean.
Zer egin dotan ba'neki
Parkamena eskatuko neutsun zuri.

Aterperik ez dot iñun...
Zure biotzetik urrun.
Egunak igaroten ba'dira...
Zer zabizu niri begira?

Nire negarra tamala da...
Baiña nork daki egunen batean,
Zozokeriaren magalean
Zurea gogorragoa izango ete dan?

Gaztedia or dabil...
Ji-ji emen, ja-ja an
Nortasuna iraundu ezin
Euskal Erri guztian.

Bertsolari Erritarra trixterik gaur dozu,
Euskera il jako ba zoro batzuen erruz
Zelan gaur alaitsu abestu?...
BAI, ZU IZAN ZARA; ZUK IL DOZU!

EZKAURIATZA'TAR XABIER

KILI-KILI'TARREN TXANGOA

Urte guztietan lez, Mungi'n diran Kili-Kili'ko umeek, aurten be izan dabe euren urteroko txangoa, eskerrak bertako gazte batzuen izerdi-lanari. Egun au, joan dan dagonillaren 12'gnean ospatu dabe. Goizean urten eta illuntziko 10'etan atzera berriz etxera eldurik.

Ordua eldu zanean, urten genduan Mungi ta auzoetako 120 umerekin. Noizean beiñean zarata bat egin ta illuntzirako samako miña egiñez. Lenengo Gernika'ra igaro giñan, an «Arbola santuari» abestu ta txistu ta danboliñarekin aurrera joan giñan, Lekeitio'ra ta Ondarru'ra; Euskelarriko erri polit oneitatik igarorik Saturraran'en dagon ondartzara eldu giñan, bertan, uretan uger-aldi batzuk egitera. Benetan, zarragoak, ba-daukagula nora begiratu ta ikasbideak non artu, ume onein alkartasuna ikusirik.

Ur ibillaldiak egin ondoren, bazkaria jatera ta urdaillak beteturik Deba aldera Motriku'tik zear. Deba'n eukiezan umeentzat pozgarri diran «barrakak», bertan naikotu ta euki zituen lauerlekoak txauturik, Durango'ra. Emen, berton dagozan aateak ugerrean ikusi, ta egalak zabaltzen zituenean edo burua uretara sartu, gure umeak txalo egiten eutsien. Andik berriz Mungi'ra.

Txango onetara, umeetariko batzuen gurasoak be joan ziran, euren berebillak arturik txikien eguna ospatzera, baita Euskalerria obeto ezagutzera ere. Ez dakie errez astuko egun au gure euskaldun txikieri. Igaro ziran errietan jende guztia zurtz eginda geldituten zan, danak bat eginda ikusirik eta umeen euskeraz egiteagaz. Batek esan eban lez: «nongo edo zelango euskaldun inbasiñoa dator emen?»

Illuntzian, pozik joan ziran euren etxeetara gure euskaldun jatorrak, euren erria obeto ezaguturik eta noiz izango ete dan urrengo ibilladia esanez.

Ta orain, amaitzeko, nere eskerrik beroenak au olan izatera alegindu diran guztiari, aurrera ere onela jokatu, Euskalerria onelango lan askon bearrean dagon ezkero. Zorionak Kili-Kili'tarrai.

LANDALUZE'TAR JOSEBA

DIRUA

Ludi zabalean, erri aundi edo tikitan, sendian edo lagun artean, Lekaide eta monja etxetan, lantoki edo kiroletan, nabarmen ikusten da diruaren zerikusi aundia.

Dirurik gabe, ain zuzen, ezer gutxi egin genezake; diruarekin ordea, eginkizun bereziak lortzen dira. Berarekin, gizona gizonagoa izatea iritxi leike, edo ta bestela, gizona ondatzeko tresna biurtu ere bai.

Diruaren korapilloa beraz, or arkitzen da. Zer egin bear degu berarekin, zertarako erabilli bear degu?

Banku-etxe eta aurrezki kutxak, esate baterako, erriak irabazten dun diruarekin jokatzen du bereziki. Diru aurreratzale bakoitzari, eundik bi edo iru laurleko eskeiñiko dio interes bat bezela. Jakin nai nuke nik ordea, diru eskeintza orretatik aparte, ze errextasun, aurrerapen eta aukerak ematen dizkion. Gaur egun ikusi dezagun, gure errian bearrezko diranak, ikastolak, lantokiak, gaixo-etxeak. Zenbat gauz dauzkagu egiteko, zenbat eginkizun moldatzeko, gizonaren onerako.

Ikus dezagun, zebat negozio eta lantokitan sartzen dan dirua accio batzuk erosteko. Bere elburua, dirua eta dirua besterik ez dela. Dirua sartu, diru geio izateko. Atzo dirua, gaur dirua, biar dirua. Atzo bearrak, gaur bearrak biar bearrak.

Egun batean oroituko al gera, dirua gizonaren morroia dela eta ez gizona diruarena. Banku-etxe, aurrezki kutxak, «fondos de inversión» deritzaionak negozioak, lantokiak, diruan bakarrik ba'du itxaropena, gizona fracaso edo ondapen bat besterik ez da izango. Dirua ordea, eginkizun sakon batzuk lortzeko irixten ba'da, gizonaren eskubideak benetakoak izango dira.

Dirua daukanak bestaldetik, nai dun bezela ibiltzeko bi milla alegiñ egingo ditu. Dirurik ez duanak bere semeentzat ogi pitin bat irixteko, arratstaka ibilli bearrean arkitzen da.

Dirua noiz dan ondamendia edo noiz bide zuzena, ene ustez argi dagola derizkiot. Ikus bestela, bakoitzak bere errian; zenbat gauz egin diran eta zenbat dagozten egiteko. Eta ori ez dago gizon baten eskuetan bakarrik, danonean baizik.

Denbora asko ez dela, langille ezagun batek esaten zidan, lur zaill aundi batzuk saldu zituela eta ez dakiela, diruarekin zer egin. Ia nun ordaintzen ote zioten geiena galdetzen zidan. Illabete batzuk lenagotik, kapitalisten aurka zegon; gaur...

Neretzako, eginkizun sakon bat lortzen ez dun diruak iru edo lau koloretako paper ximple batzuk besterik ez dira. Edo burniz jantzitako gauz borobil bat denborarekin txatar biurtuko dena.

RAMON ZAPIRAIN

DANTZA TXAPELKETAK

Gipuzkoako dantzariak gera. Dantzari talde onek, azkeneko urte abetan zenbait gauza ikusi ditu epai-maieko artean, dantza-txapelketak direla bide. Euskelerriko folklorea indartu dedin, eta batez ere, dantza libreko txapelketak bere lekuan jartzeko asmoak bultza erazten digu ezkutitz au argitaratzea.

Epai meiekoen utz egitea nabarmen agertu da azkeneko bi txapelketan. Errenderin bertako jaiak zirela aitzaki, Gipuzkoako txapelketa eratu zen. Egun berean eta ordu gutxiren barruan? Elizondon Euskalerriko norgeiagokoa ospatu zen.

Gipuzkoako txapelketan azkeneko gertatu zen bikotea, Elizondon bigarren geldidu. Eta lendabizikoak oso atzera. Dantzari geienen artean ikusi dugu gertakizun au ez dela serioa. Batez ere, ikusirik Errenderin eta Elizondon bikote oiek berdin xamar eta akatzik gabe dantzatu duela.

Zer gertatzen den emen? Galdera onen erantzuna zuek eman bear duzutela usten dugu, epai-maieko gizonek.

Beragatik, eta gauzak argi ta garbi jartzearren, bultza erazten digu zenbait puntu bere lekuan jartzera. Zergatik ez zerate juradu guztiok alkartu lege batzuek ipintzen dantza libreko txapelketan, dantzariak jakin dezagun zer eratara dantzatu bear dugun? Gertatu leike askotan, juradu bakoitzak, dantzatik kanpo, dantzariekin izatea laguntasun geiago edo asarre geiago. Ori orrela ba'litzake, guk eskatzen duguna auxe da. Sinpatiak edo asarreak alde batera utsi eta ondona dantzatu duen bikoteari eman merezi duen saria. Dantzaren nortasuna arkitu eta ondo aztertu, pausuak, estiloa eta abar. Naastu gabetenik, bikote batek egin lezaken gauz polit, dantzariekin ezer ikustekorik ez duenik.

Juradu, txapelketa bakoitzean, dantza zer den dakiena, izan dedin eta zenbat eta jakintsuago obekio oraindik. Dantzariak denbora luzean egindako ensaioak, izan dezatela bere saria juraduen erantzun jatorrakin.

Errenderiko txapelketan dantzariak eskabide bat egin gendun epai maiekoeri. «Alegia jarri zedin banaka, eta bikote bakoitza bere dantza bukatu ondoren dantzarieri aditzera eman dantzaren baldintzak, jakin dezagun nundik ibilli». Eskabide ori ukatu egin zitzaigun. ZERGAITIK? Dantzariak prest gaude, epai-maiekoekin era guztietako artuemanak edukitzeko. Baldin eta artueman obek dantzan onerako ba'dira.

Asieran esan dugunez, gure eskutitz au dantzan onerako asmoekin idatzita dago. Ez dugu iñorrekin aserrerik nai? baizik eta gure artean sortzen diren okerrak al den neurrian zuzendu. Asmo onekin azaldu ditugu emen gure pentzakera batzuek. Denon artean zuzenduko al dugu ain gurea dugun folklorea.

DANTZA TALDEA

AA
ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA
BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA
Tenderia, 18
21-15-07 urrt.
BILBAO-5

Prêt-à-Porter Butikeak
Guijarro
Europear sendia jasteko
Gran Vía, 35 Parkinga duan

KONTU KONTARI

MIRARIA!!! ASTOAK IDAZLE

(orain eskritore)

Ba-dakizute ni beti erdi bakar ibilli naizala. Ez naiz guziz lagun artekoa. Beti gizarteari igeska izan naiz, edo eskapa egin nai izan diot. Ene lagunak, zeozer errateko zuenen artekoak ziran. Argatik urtetan, ume nintzelarin, Aresti, Oteiza ta abar ziraten nere aita ordezkoak, lagun baiño geiago. Gero derrigorren bidez urrutitu ondoren, basterretako abereen lagun egin nintzen: zakurrak (lau ezpaita bost) zerriak, bei ta idiak ene ondoan zebiltzen; eta pozik uste dut.

Irakurtzeko ez zen etortzen, ez zen eltzen ene ta enien etxera «El Correo» edo «La Gaceta», baiña beti bezela, illero illero, an zeuden maita nuen «Anaitasuna». Bere bidez anai onak edo arreba liraiñak poztutzen nuten baster bakartatetan.

Bakartatea atsegiña baita, onela asti uneak betetzeko aukera degunean. Akordeoia era jotzen nuen eta guzia ona zela, oro ongi zegola eta euskal liburuxka banakak irakurtzen asi nintzen: zarrak eta berriak. Baiña, jakiña, zarren artean apez geiegi, eliz aundiegi, ta pekatu larregi zetozten, eta ene lagun zenak, bera eskritore ona zela erran zidan, eta irakurtzeko bere lanak. Leen eta bein bere nobela saritu bat Bilbo'ko kale (karrika) bateko, edo emakume galberakoen arteko antzerki bat eta beste zeozer geiago eskaiñi ta kafe batzuk artzeko, noiz edo noiz joateko ta bere etxeko zuzenbidea eman zidan. Ala egin ere. Kafea ona zen eta koñaka obea (koinaka?)

Ba nuken karrika artako emakumeak ikusteko gogoa, ta gero bidea ikasi nuen. Lenengotan beldurrez... baiña gero ondo igarotzen zen areitan. Antzerkian baiño obeto. Orrela gizarte malurakoen tarteko ta nere bakartatearen oiñeko geratu nintzen. Ta alako edertasuna literaturan arkitu nuelako, abira, gero ta aundiagoakin irakurtzen jarraitu nuen. Trixteena au da: ez arkitzea nola idatzi edo eskribitu «irakurri», «deitu», «deidu»...

Euskerea, euskera aldetik len ongi ulertzen nuen. Orain ere. Baiña ain naste aundia ikusten dudan ezkero ez dut bide zuzenik. Nere amonak erran zidan bezala: «Mutil, so egik ortik zer berri den, aizeak naste aundia dakartela iruditzen zaitak eta». Egin nuela bai so, baiña lorri siñes eziñekoak ikus ondoren atzera jo nuen.

Dena dela eldu da aroa, jarri da giroa: ona alde batetik, naita gaizki ikusia bertzetik. Ene lagun abereen tartean, pozik leitzen dudaz oraingo lan asko. Ta zergaitik poz au? Iñoiz ez nuen uste izango astoak idatziko zuenik! Nere lagun on diren astoak! Eta eskribitu egiten dute siñez eziñeko jakituriakaz. Mitologia goren bezala esagutzen duten antza ematen dute. Eta ez dakit beste zenbait eta zelako, Indiako eta Oriental jakingarri goi maillako...

Azkenengo ontakoa, erraterako, guziz ondo zegoen. Ta izenpekoa ez dakit zer zen, baiña... «Malgizon arestiar». Uste dut areitz arteko animali, enetzat desesagun bat izango dela, animaliren baten izen propiaren bat (?) (Ta orain arte zelan ezagutu ez eniek?) baiña, ta beti baiñaka... (ez bainaka... motz zegok eta...) zakur batek idaztea... ez dakit zer erran ere, oiñak dituz eta... Miraturik utziten nauana, malgizon batek idaztea da, oin gabeko animali arrastalaria delako.

Benetan poztutzen nau jazokun miragarri oneik. Zorionak ene animali lagun onen aurrerapide guziakaitik

Horrenbesterekin

PELLO

ZUBEROA ZEAR

Gure Zuberoa zear ibilli-barri naz, lenengo aldiz, adiskide on batzukin. Egun eder eta pozgarriak benetan an emondakoak; errez aiztu eziñekoak. Auñamendiko gaillurretan asi ta Adour bitarteko erririk geienak, azal samarretik beintzat, ezagutzeko erea izan gendun; baita jendearekin artu-emon pixka bat eukiteko be.

Ba-dira amaika bazter ta txoko zoragarri Euskalerriko ertz orretan. Mendi ta mendixkak burutik orpoetaraiño zugatzez jantzirik; tarteetako utsunetan artalde zuriak, gaurko mundu artegatuari bakea ta nasaitasuna zer diran adierazo nairik. Aspaldietako basetxe zaar txukunak mendi egaletan ta ibarretan. Solo arloak arduraz eta maitasunez landuak.

Tamalez, industria gitxi agiri da, edo bat bere ez, esatekorik. Orrexek, industria-ezak uxatzen dau, zoritxarrez, Prantzia ta Amerika aldera Zuberoako gaztedia. Etorkizun illuna ta kezkatsua erri batentzat gaztediak alde egin bear izatea.

Uri ta erriak garbi ta txukunak, maitagarriak. Iru torreko Eleiza zurizkak ugari, illerria inguruan dabela. Geienetan illobi artetik sartu bear dozu Eleizan, ill eta bizion Aitarenean; gure etxeetako sukaldean aulki artetik sutondora lez.

Illobi oneik ez dabe biotzean tristurarik sortzen, poza baiño. Ill eta biziok oraindiño alkartuta, Aitaren ondoan bat eginda jarraitzen dogula adierazoten dauskue. Igandero Kredoan kantatzen dogun ber-bera: «siñisten dot santuen alkartasuna», emengoen ta bestaldekoen alkartasuna ta artuemona. Zegaitik uxatu gure artetik zaarrak eta ildakoak? Eutsi maitasunezko kateari, orixe baita bear dogun kate bakarra, Aitarekin eta anaiakin gozoro lotzen gaituana.

Eleiza askok bi edo iru koru ditue, bata bestearen gaiñean; atzean asi ta presbiterio ondoraiño aurreratzen dirala. Eleiza Amak bere seme-alaba guztiak besarkatu nairik besoak zabaldu ta luzatzen dituala esan legi. Ez gendun eleizkizunik ikusi, baiña olako Eleizatxo baten, nai ta ez, biozkorrak eta famili kutsukoak izan bear.

* * *

Eta Zuberoako euskera? Egia esan, bildur nintzan anaiok alkar ulertu eziñik ibilliko ete giñan. Baiña ez. Liburuetakoa baiño askoz errezagoa gin jakun zub rotarren ezpanetatik bizi-bizirik etorran «eskuara» eztia. Lekuko ditugu ainbat eta ainbat zuberotar; ume, gazte ta zaar; Maule'n, Barkoxe'n, Montori'n, Santa Garazi'n, Larraiñe'n...

Emen, Larraiñe'n, bertako mutil gazte batekin euskeraz ari giñala, neskatxa ponpoxa bi igaro ziran gure ondotik prantzeraz iketan su-ta-ke. Orduan nik nire alboko lagunari: «Neskatxa orreik *kaskoiñak* dituk». Eta eurak bereala gugana biurturik: «Ez, kaskoiñak ez; eskualdunak!»

Zuberoa ta Bizkaia, Euskalerriko ertz biok errez alkar ulertu gendun. Bein be ez gendun *erderara* jo bearrik izan. (Ba-dakizu zer dan erdera: euskera izan ezik beste izkuntza guztiak. Emengoontzat geienbat *gaztelera*, ta Auñamendi ostekoentzat, *prantzera*).

Eta *batasuna?* Ezin ukatu: premiñazkoa dogu. Baiña, al dala, anairik txikienik be mindu gabe egin bear gendukena. Ez etc litzakigu askoz obeto etorriko, laboratorioan sartu aurretik, zazpi anaion arteko alkartasuna sakonagotu ta artu-emonak ugariagotzea?

Joka daigun batez be maitasunez; kanpotarren aurrean «etxeko sua etxeko autsaz eztaliz»; baiña etxekoentzat txingartxo bat be ezkutatu gabe.

* * *

«Agur, Zuberoa, bazter guzietako txokorik ederrena»; euskal familiko anaietan tipiena ta kutunena.

Beste bat arte!

ARTEAGA'TAR L.

BELOSTIKALE

Beiñola Arraindegi (Pescadería) deituriko kalea au, geroko baten, gaurdaiño dirauen Belostikale izenagaz aspaldi bateko bilbotarrak izentatu eben. Izen bi onein zergaitia beingoan azaltzera noatzue. Arraindegi izena etorkion ala ere, Santurtze'tik urtenaz ta Nerbion ibai gora etozan arrain-txalupatxoak, aspaldin Barrenkalen egoan kai-ordean lurreratzen ebezan arrain-pilloak, Arraindegi kalean batik bat saldu oi ziralako.

Belostikale izena, askoren eritxiz, bolu edo errota-osteko kalea esan gura dau, aspaldion bada, Ibeni'ko nasatik Areatzaraiño (Arenaleraiño) boluerrota txiki batzuk izan zirala, ta euren ostean aipatutako kaleak asiera artzen ebalako ain zuzen. Dendari-kaletik beruntzkoan urrena danez, aregaz zer ikusi asko dauko, bataren ta bestearen jazokizun batzuk gogoratu ezkeroz.

Legizamon etxe dorrea Belostikale asieran egon ei zan. Legizamondarrak ta Zurbarandarrak gorroto baten bizi ei ziran, ta liskar ta burruka guraiña euren artean sortzen zirala, lenen Dendarikalean ta gero Belostikalean odol-izuritze ta erailketa gogorrak euren artean izan ebezan. Tamalgarria benetan! Ordua da ikasi daigun batasun bideak billakatzen!

Kale ontan, salerosketea begiratuaz, nabarmendu ei ziran janzki ta oiñetako dendak batez be. Joan dan mendean, Juan Amann jauna irazle zala, bere izenezko saltegiak zazpi kaletakoak ezezik, Bilbo guztiriko garrantzitsuenetarikoak izan ziran. Etxe osoa saltoki biurtutik, etxe-oin bakotxean salgai mueta ezbardiñak saltzen ebazan. Bilbotarrak, Paris'ko saldegi txikiak deitzen eutsen. Geroztik, munduko gauzak lez, beruzkoa artu eban, kaleko beste denda itxurazko bat bakarrik izateraiño eltzen zala.

Egungo egunean, kale polita dogu beraz. Guztiriko dendak idoro geinkez. Ots, oiñetako saltzailleak, jantzi gertuta atonduak eskeintzen dabezanak, edergaillu ta tximistindardunak t. abar.

Bateon batzuk aipatuteko, or dozuez: Erri-karta Bengoa, Erribera kale ondoan, jantziak, eunak, miesak saldu daroazana, euskalzale errimea bera. Gorritxo azi-saltzaillea, enparantzean amasemeok saltoki berezia dabenez guztiriko azi, loraazi ta pikorrak saldu oi dituezenak. Berein baserritar eurengana doaz euskeraz berba dagiela. Rema saltegiak, lur-zuri ta leiarrezko ontzi saltzailleak eurak.

Bitor kalean saltegi nagusiak dabezala, Ugarte J. jostundegi apartekoa, nire adizkide miñak, kale erdi-erdian datza, oneik be euskaltzale kirmen kirmenak, alegia.

Ondarra saltokia, argontzi, edergaillu ta tximistindar tresnadun saltzaille berezia. J. Egiron, oial ta eunen saltoki bikaiña. J. Aldama droga saltzaillea. Abar eta abar. Kale ontan ez da ainbeste euskera entzuten, baiña ori ta be, banaka batzuk oso polito egin dagie.

Beti lez, oartxo bat bide dala, amaitzera noa. Danok, gitxi jakin arren, alegindu gaitezan euskeraz berba egiten. Gartsu, bulartsu joka daigun euskal-saillean. Olan, berez etorri leikegun bilduRRa alboraturik, al giñoan kitatuko, bardinduko doguz, beste kaleetan dantzaguzan erdera soillezko alkar-izketak.

Gaurkoz naiko dala deritxat. Urrengo arte ba, ta agur!

ARREGI'TAR JOSU

ONA ta RAM

EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

BLASA

Ostal-Etxea

MARIA CRUZ KEREXETA

83-11-07 urrt. ZESTUA

SAGARNA

ANAYAK

BEREBILLEN

BERRIZTE

GARBIKETA

URINDATZE

83-11-75 urrutizkiña

ZESTUA

LANABES

LANDOLA

I. Z. E. A.

MAKIÑA LANAK

83-12-03 urrutizkiña

ZESTUA

ZESTUA

Ikus-Ibilletan

Lenengo aldiz argia ikusi genduan txokoa dala gizonontzat zoragarriena diote. Ez nago ezetzean. Baiñan, ain gera asegaitzak, beti toki bertan aspertu-edo egiten gera; bazterrak, gure Jainkoak ain egoki jantzi dituan bazterrak ditugu gogoan; ibilli naia degu zirikalari... zer dakit nik zenbat arrazoi-aitzaki: gure txokotik irtetzen gera beintzat.

Euskal erriak ba-ditu toki ederrak. Ainbesten tartean. Baztan ibar-aldea ez da gutxiago. Erri txikiak ditu, baiñan, txukunak, eta, batiz bat, erriak osatzen dituzten etxeak..., aiek jauregiak alajaiñetan. Erri-barrenean patxara ederra ikusten da. Baserritarrak dira geienak, eta, beren lanetan diardute. Batetik Baztan ibaia, bestetik bitzabala, alde guztietatik lurraren irabazi orlegia, oraindik ez da galdu euskal-erria!

Ez, ez da galdu euskal erria. Euskera bizi da, ta euskal oiturak ba dute indarra. Pelota-tokirik gabeko erri txikienik ez dago; trinkete deritzaienak ere ba dituzte, ta, alde onetako euskal erri gutxitan ikusten dana, bota-boleako deitzen dioten tokia. Azken-aldi auetan, pelota-kiroletik gazte batzuek aurrera ateratzen asiak omen dituzte. Asiera ona eman omen diote, ta erritarrak, auen ondoren, kirol jator onetan ugariago azalduko zaizkielakoan, pozik daude.

Erri paketsuak dirala esan dut, eta alaxen da. Baserriko lanetan diardute, ta emendik daukate irabazbide bakarra. Soro-sail ederrak, gaur artoz orniturik; zelai-pendiz, eta belardi bikaiñak; basoetan garoa ugari, ta aritza, kastaña, ta pagoa zer esanik ez. Urri dala oraintxe pagoa euskalerrian, baiñan alde onetan, ba-du bere apainduria nola erakutsirik. Emen orrenbeste pago nola oraindik?, esango du iñork. Arrazoia garbi dago. Piñuak dámala dirua ta ez pagoak. Baztandarrak orrenbeste ta geiago ba-dakite, baiñan, ara nundik, piñuari lur arek atzea ematen dio nunbait. Ia zenbat gizaldietan barrena, pagoari indarra eman dion lurrak, bera gabe ezingo lukelako dala esango nuka.

Baserriak ederrak. Esnea dute indarrik bereziena, ta orretarako, ganadu asko daukate.


Baserrian eta kalean gazte gutxi ikusten da. Industririk ez dala alde aietara iritxi, ta, gaztesail aundiak irabaz-bide-billa, erritik irten bear izan dute. Industria degu alde guztietan aoan. Onen menpean ainbeste alde on galtzen ari dira euskal errian. Industria bearrezkoa da, baiñan, baserria, bestetik, ez al da ain bearrezko? Euskal errian baserria galduko ba'litz; euskerak bere oiñarria, bere babes eta zaitzaillea aurrerapenaren indarpean desegin ondoren nola iraungo luke? Ez lukela ala bear, baiñan, zoritxarrez, industria sartu dan euskal errietan gertaera tamalgarri au ikusi da.

Baztan-alde au, oraindik garbi dago. Euskerak ba-du indarra, ta oneri eutsi bear geniokela deritzait. Oraindik zutik ditugun pitxi aueri lagundu, berekin bat egin, eta, itz batean, euskera bere babesik ederrenean zaitu.

Atseden eder ondoren, berriro txokora, ta emen burutapen auek eraso zidaten. Izan ere, gure erriari, Baztan aldearekin antz aundia eman nion. Zestua'n, oraindik, baserri asko dago, euskerak sendo dirau, naiz ta zenbait talde azpi-lan sutsuetan jardun. Industri pixkat daukagu, baiñan, ori bai, batetik ibaia, baztan bezain garbia ez, baiñan, amorrai ta guztikoa; bestetik bitzabala, alde guztietatik lurraren irabazi orlegia, baiñan, tamalez, orlegi illuna, ta ez, Baztan'en bezela, orlegi argia; au da, piñua ta ez pagoa.

Gizonok euskal-batasun billa burrukan gabiltzan bitartean, ama lurra, bat-gerala deadarka baiño indar geiagorekin adierazten. Ederra ikaskizuna!

TXIGUA



EKAIN'GO ARPEA

Munduko edestia; gizakiaren politika, jakintza ta diru-aldearen aurreratzea. Kondairari buruz, gizonak bakarrik mintzatu gindezke. Abere kondairarik ez bait da iñun. Adibidez erleen aberriak eta txingurrien laterriak, edesti-aurreko erriekin eta gizartearekin, zer ikusirik ez dauka. Gizonaren edestia, mamorro, igelki, ugaztun, eta egaztien gaiñetik dago.

Ludiko kondaira, gizonaren asierakin asten da. Edestiak ez bait du gizonaren jaiotzaz ezertxo ere galdetzen; gizakiaren izatea onartu, eta emandako gauza bezela artu baizik. Ludiko edestiak, gizonaren jaiotzak egiten dion galderari, zer eran tzunik ez dauka; bakarrik, mugatu ta xedatuaz. Izotz-aroan, gizonaren berezitasuna egiaztutzen du.

1856'gn urtean, Düsseldorf'ko langille batzuk, Rin'go eskualdean Neandertal arpean gizonaren ezur-utsen ondakiñak aurkitu zituztenean, edesti-aurreko kondaira asi zan. Ezur-uts aiek ikertu ta aztarnatuaz, Neandertal-gizonaren irudia, jakintzak sortu zuan. Irudi au, oraingo gizona baiño askotaz ere, beerako maillan gelditzen da. Oraindik arbaso ua, irudi-bidez, aldizkari ta izparringietan, bekaiñeko ezurtza-mokor, bekoki-igesi ta masail-ezur ertenakin, Neandertal-gizona ikusten dugu.

Edesti-aurrea dala-ta, gure Zestu'ko erriarekin, zer ikusia ba-du. EKAIN dalako arpea alegia. Sestarrain baserri ekain-bizkargunean aurkitzen dan arpe zoragarria. Arpe au, 1969'go Garagarrillaren 8'an, Andoni Albizuri ta Rafael Rezabal, Azpeiti'ko gazteak; Antxieta jakintzataldekoak aurkituta gero, J. M. Barandiaran eta J. Altuna jaunak, miatu zuten. Ara MUNIBE aldizkarian, zer esaten duten.

Laster ikusi genduan guk ere arpea ta bereala ekin genion ango ikaslanari. Baita, geroago, atariko ta eskaratzeko zoruaren azterketzari ere.

Arpe-zoruan egiñiko azterketan bidez, ikusi ditugu ango betelanen mailla batzuk, batez ere. Goi-paleolitos aroko gizakien sutoki, lanabas eta beste ondakin asko. Ondorengo azterketan bidez xeatasun geiago gai ortan arkitu al izango degula itxaro degu.

Arrigarria da nola ango ertilan edo eskuantzak gaurdaiño iraun duten. Ikustekoak dire, batez ere:

1'go.—**Ogeita amairu zaldi-iduri.** Zaldi asko margoz apainki egiñak dauda, lepoko zurda-txumak eta soiñaren zimur eta illé-mugak larmen dirala.

2'go.—**Amar bison.** Arkaitzaren pitzatu, zulo, tontor edo ertzak bisonaren antza dutelarik, beren-utsak ertilariak margoz edo ildoz osatu ditu.

3'go.—**Lau auntz.** Oek ere inguruz marreztuak.

4'go.—**Orein bi.** Bat ildoz egiña, bere adartza okerka ageri digula.

5'go.—**Artz bi.** Marra beltz zabalez egiñak.

6'go.—**Arrain bi.** Oetako bat (auntztegian dagona) lerro urdinarrez eratua: izokiantzeko bera.

7'go.—**Lerro utsak ugari.** Batzuek margoz, besteak ildoz. Sailka, asko.

«Ekaingo marreztura-sailla, eder, ikusgarria, labarrietako ertilanean arteko pillarik ederretxoenetako bat da; 'franco-cantabrico' izenta oi dan erti motan beintzat. Arpe orri ikustaldi bat egitea edozeinentzat ikasbide atsegiña izan liteke. Ekaingo ar-zuloak leen-gizakien eraikintza, ezaugarri ta edergailluen biltokietarik aberetseenetakoak bait dire».

Baiña oraindik itxita jarraitzen du. Noiz arte? entzun dugunez, Madrid'ek omen du itza.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

EGOITZA-ETXEGINTZARAKO ALKARTEA

"DANONA"

83-10-70 urrutizkiña ZESTUA

DM

DISTRIBUIDORA DE MAQUINAS, S. A.

ETXERATZE TA ERBESTERATZE SAL-EROSKETAK

83 11 69-83 11 31 urrutizkiñak

ZESTUA - Gipuzkoa

"PORTU"

Jatetxea

ALEJANDRO UNANUE

Euskal sukalkera

Urrutizkiñak:

Bizitegian: 83-10-50

Jatetxean: 83-10-96

ZESTUA

"GURUTZEAGA"

Pelota-leku Alkartea

Iraillaren 8, 9 ta 10'ean gorengo pelota jokaldiak

83-10-52 urrutizkiña

Z E S T U A

ZESTUA'N

ZINE "ELIZ-ONDO"

Aretoan

Erriko jaietan agertuko diran film edo pelikulak:

Illaren 7'an eta 8'an

ADIOS, CIGÜEÑA, ADIOS

9'an larunbatez

LOS VIVIDORES

10'ean igandez

ANONIMO VENECIANO

ALKAR-IZKETAN

Luistarrak eta Mariaren alabak, neska-mutil taldeak banaturik zeuden; talde bakoitzak beren batzordeak, eginkizun bereziena illeroko jaunartzea zutelarik. Gaur egun ez bai zegoan era onetan jarraitzerik, eta urte batzuk ba-dira, erri barrutiko arazoetan parte artu nairik, gazte auek sartu zirala.

Asken bost urte auetan gazte auen egon eziña nabaitzen da. Eta erriko jai nagusiak ditugularik, gaurko erriko gaztediaren itza ta iritziak entzutea, ta, gure txoko maitagarri onetan indar berezi bat ba-degula konturatu gaitezan, erriari berri ematea, egokia izango litzake.

Ontarako, urbildu naiz berengana, ta, ara emen zer azaldu didaten:

—.....

—Neska-mutillak alkartzea bear-bearrezkoa ikusten genduan; alkar ezagutu, alkarri lagundu, ta alkarrekin lan egiteko: bai jakintza, kirol, jolas t. a. aldetik. Alkartean dagola indarra ezin uka. Begira, bestela, lenagoko moteltasun ezerez ura, ta gaurko erriko arazoetan bene-benetan sartu, ta alkarte onetan ditugun arazoak zuzentzen laguntzeko daukagun gogo bizia.

—.....

—Neska-mutillak osatzen degu batzordea, ta urtero indar-berriak sartzen dira bertan. Era oneri egokia derizkiogu, irtetzen diranak kezkaturik irtetzen bai-dira, ta berriak komeni dira kezkatu ditezen.

Alkarte au erriko gazte guztiak osatzen dute, denak daukate sarrera. Orain, une onetan laguntzaille diranak eun eta ogei bat onetan laguntzaille diranak eun eta ogei bat dirade... beno laguntzaille diot... diruz laguntzen dutenak, baiñan, or daukazu zerrenda.

—.....

—Ekintza berri batek eragozpen ugari igaro bear izan oi du, ta, guri etzaigu bestela gertatu. Guk ere igaro bearrak izan ditugu gaur gauden maillara gertutzeko. Kirol aldetik esan dezakeguna, auxe da: Zestua'n ez daukagula gaur egun indar berezirik artzerik, toki berezirik ez bai-degu. Atletismoa, igaria, futbola, tokirik ezak debekatzen dizkigu, baiñan, ala ta guztiz ere, pelota-tokian egin dezakegun guziari eltzen diogu. Adibidez: balonmano; pelota bera erri barrutiko txapelketak jarriaz, «Gure Txokoa» elkartea federatuta dagonez, eta Sagarzazutar Imanol delegaduaren ordezkariaren laguntzarekin. Futbola bee-maillan, Zumaya ta Zarautz'ko ondartzara irtetzeko aiñan, eta kito, naiz ta gure asmoak aundiagoak izan. Baita, urtero bezelatsu, naiz ta, aurten ere, federatuta ez egon, mendi-goizaleentzat programazio bat antolatu nai degu. Gure Erria, Euskal erria ezagutzeko ibillaldi bereziekin jarraitzekotan gera.

—.....

—Ba, kultura akdetik disko-forun bat jarri nai genduke; antzerkiari ere eldu nai genioke. Naiz ta antzerkiak indar bereziak eskatu, gainduko ditugulakoan gaude. Gazte ta zar-gazteak lagunduko digutelakoan gaude. Zestuak beti izan du antzerkirako doai berezia, eta berezitasun onetan jarrai nai genioke. Liburutegia ere ba-daukagu, baiñan oso zabartua dago. Eta gaur gazteak, egunean bizitzeko, iñoiz baiño geiago irakurri bearra daukala, daukagun liburutegia berritzeko une egokia izango litzake. Baiñan, lengo liburuak galdu ez ditezen, baita ere, udazkenerako osatu-berritzea nai gendukenez, sakabanatuta daudenak biurtzen alegintzea egokia izango litzake.

Itzaldiak ere, urtero izan oi ditugun bezelatsu, izango ditugu. Ta bereziki, aste kulturala antolatzekotan gera. Doiñu aldetik, abes-batza osatzekotan gera, euskal abestien gozotasuna gure biotzera sartu dedin.

Euskaldun geranez, gure izakera ezagutu nai genduke, ta ortarako, gure sort-erria ezagutzeko ikastola bat sortu, ta osatu nai genduke. Eskola Sozial bat bai, baiñan, gure endaz oñarriturik.

* * *

Etorri bildurgarria zeukaten aurrean nenduzkan gazteak. Ezin ixildu arazi, ta, luzatu ez dedin idazlan au, beren egitekoak eta asmoak laburki azaltzera noa. Ikastolakin ere artu-emanetan daudela zioten. Ikastolako batzorde barrutian ordezkariak zeuzkatela, ta, naiz ta aurren eziketa gurasoen gain utzi, premi aundia ikusten zutela ikastola-barrutian, batiz bat dirualdetik; eta beren laguntza, ikastolak iraun dezan, alde orretatik zijoala.

Eskola-Sozial'ari buruz parre egiten zuten... Parre... lanerako berebilla bear ba'du, «utilitario» bat naikoa dala esan, eta, gaur egokitu diranean... Parre norbere burua aberastu, jantzi..., ta jantzi ta aberastu diraneri. Parre langillearen ordain-sariak altxa, estuasunetik atera bear dala esan, eta, berak estuasun auetatik irten diranetik ajola gutxi, bost ajola zaielako bestearena... Parre, faltsoak irten diralako, parre...


Udaletxeari buruz, fatxada besterik ez dutela ikusten zioten. Beatzarekin aukeratutakoak askozaz jatorragoak oi zirala zioten. Zerga-gaian, goi maillan jarri, bai etxe-ondakiñak, urak, t. a. dirala; errirako dan aitzakian erriari kendu dirua; eta, azken-aldi onetan, udaletxe barrutian gertatu dana: batzuen interesak sendo zeuden bitartean, erriaren dirua... Onek ez dauka barkaziorik. Datorren zinegotzi aukeratzean zer ikusia daukatela zioten.

Aurrera, gazteok, zuek izango bai-zerate erria bere lo-zorrotik aterako dezutenak. Ba-zegok bai zer egiña, ta itxaropen zuat, bai, zuengan; erriarentzat dezuten maitasun, su-gar orrek eraginda, beste aurpegia erriari azalduko diozute.

Eskerrik asko.

EUSKO

ZESTI



JAYAK

3'an. *Aurren jaya: Goiz-goizetik, txistulari gaztetxoak eta «Zarata-Ugari» taldeak alatituko dituzte bazterrak. Amaiketan Meza Santua. Amabietan aurreskua. Arratsalde zear, jolasak, pelota jokaldiak eta taborrada.*

7'an. *Jai nagusien asiera, jolasak eta apalosteko dantzaketa.*

8'an. *Andra Maria'ren jaia. Zazpiretan Estella'ko dultzaineroak esnatuko zaituzte. Bederatziretan Eres-batza kalez-kale. Amar t'erdietan Gizandi ta buru-aundiak. Amabietan Meza Nagusia. Ondoren, Elorza jaunaren zuzentza pean, erez-batzaren joaldia. Arratsaldeko lauretan zezenketa. Ondoren pelota jokoaldiak. Gero dantzaketak, baita apal-ostean ere. «Alarma» taldea soiñuari.*

9'an. *Beste orrenbeste, «Fanfare Pasai» lagun izango degula. Baita «Balzola» zelayan tiroka azpil puskatzea amaiketan.*

10'ean. *Igandez, Margolarien leyaketa; bigarren zezenketa, baita azpil puskatze ori ere berriz. Eres-batzaren joaldiak eta gaueko dantzaketak ere beste egunetan bezela.*

17'an. *Meza Nagusi, eresaldi, jolas eta dantzaketak egun guzian.*

GUZITARIKO BURNI-SALTOKI

TXIMIST-INDAR GA

UGART

Odietara

Andra Maria'ren jayotza, 15 31-66-

83-11-54 urrutizkiña

Z E S T U A

GAZTAÑAGA

ETXEGINTZA

Zumai'ko «ALAI» zokodi auzunean, 180 egoitza jasotzen ari da

100 mt. lauki bakoitzak; etxe-gai onenetarikoak

Igeri-tegi ta tennis zelaiak ere egitekotan

Salneurri onurakorrak

Ordaintza-erreztasunak

83-10-52 urrutizkiña **Z E S T U A**


IRAZ-BURNI GALDA LABEA

LANABES ASTUNETAN BEREZITUAK

FUNDICIOSOR

BUGAL

ERRIA ETA IKASTOLA



IKUSI TA IKUS ARAZI

Deadar onekin erritarren kontzientzia esnatu nai genduke. Erriko-etxe, naiz erakunde batek edo bestek, bete bear aundi bat dute: alegia, aurrak babestu. Eginkizun ederragorik!

Aurrak arrixkua nundik azaldu litekean, ez du ikusten. Aurrak batera ta bestera ibilliaz jolastea besterik ez du pentsatzen, ez bait-da geldirik egoteko egiña. Orregatik, umeek babesa bear dute, itz batean; jolasteko toki bat.

Guraso, ezitzaille ta agintariek, arazo au, bereziki artu bear dute. Atzerrietan, batez ere, Frantzia'n, Italia'n eta Europa guzian, arazo onetzaz, kezkaturik aurkitzen dira.

Arren, lenbailen gure errian ere, aurrak jolasteko toki egoki bat aurkitu bearra daukagu: arazo ontan kontzientziak jokatzen du. Ez dago gerorako uzterik; ez-bearren bat gertatuta gero, ez ditzagula eskuak burura eraman. Orduan alperrik egingo dugu negar.

JOSEBA

Erriko jaiak dirala-ta, zerbait idaztekotan, ezin joko dugu amesetako gai panpiriñen billa; ez litzake egoki. Erriko gai bizieri eldu eta arroturen bat ematea, berriz, ez da txantxetako lana.

Ba legoke gai bizirik aski! Norbaitek astindu eta argitu nai baldin ba'litu ere, emen izendatuko ditut batzuk: Udal-gizonak edo erri-gizonak, zenbait beintzat erriak aukeratuak; auen erri-lanak... erriaren ordezkaritza. Kontu-emateak... Bestalde, aukeratzailleen utzikeria: zer eskatu, zertara bultza? ezertan lagundu ote?

Erri-arazoetan, berriz, erri-ondasunak, arrobiak, erri-lurrak; ikastetxeak eta Ikastolak...

* * *

Besteak beste, Ikastola-arazoari eldu nai diot alderen batetik bederen.

Zestu'ak berekin ditu zenbait auzo: Aizarna, Arrua-beea, Arrua-goia, Iraeta, Lasao. Auzo auek txikiegiak dira bakoitzean Ikastolarik ipiñi-aal izateko. Zestu'ara bertara edo erri-burura biltzeko, berriz, naiko urruti arkitzen dira; urrunegi, egia esateko.

Arrua-goi'an 24 aur bildu ziran Ikastolara azkeneko ikastaroaren asieran; gero 16' tara jetxi. Izan ere, zenbait erdaldunek eta beste zenbaitek, jakiña, besterik ezean bidali zituzten. Bestelako eskolarik antolatu dutenean txikitxoentzat, aruntz aldatu dituzte, merke-usaian, noski.

Arrua-bee'tik batzuk, Iraeta'tik beste bakar batzuk; gaiñerakoak, Zestu'an bertakoak biltzen dira Ikastolara, naiz txikien artera, naiz azixeagoen saillera.

Erri eta auzoetakoak elkarren inguruan ba'leude, bost-sei errixkaren antzera zatiturik egoteko ordez, a zer nolako ikasletza Ikastolan! Gutxienaz ere, auzoak elkarrengandik gerturago eta urrerago ba'leude, talde ona bilduko litzake, bada! Ba-dago ortarako giro jatorrik eta gogorik. Baiñan...

Ala eta guziz ere, ez dira gutxi, ondoren ikus ditekeanez:

3'tik 5 urterakoak:

Arrua-goi'an	16 aur
Zestu'an	57 aur

6'tik 10 urterakoak:

Zestu'an	70 aur
Danera	143 aur

Zestua erri-buruan eta auzoetan ikastera dabiltzan nexka-mutiko guziak 545 omen dira, Urola'ko «Ikasketa-Alkartasuna» Elkarteak dionez.

Guzi oietatik 348 aur maillan-maillan sailkatu gabeko eskoletan dabiltza an eta emen. Eta 197 besterik ez maillaka antolatutako ikastetxeetan.

Bitartean Ikastolan maillaka antolaturik dabiltza 70 azitxoenak eta maillaka eratuta baita 73 txikienetatik 57 nexka-mutiko ere.

Zestua osoan 219 aur baldin ba'daude 3'tik 6'rakoak —ikasketara beartu gabeak, alegia— txantxetan ere 146 aur gelditzen dira iñolako eskolarik gabe. Erlijioso-etxe batean ere ba-dituzte ortxe 10 bat aur. Gaiñontzeko 73 txiki oiek ikasketa-bidean sarturik arkitzen ba'dira, Ikastolari esker da, ain zuzen ere.

Bestalde, irakaskintza eta eziera batebatere aurrerabidean baldin ba'dijoaz, nexkamutillak elkarrekin arturik ezitzea dala dirudi egokiena. Ontan ere Ikastola bakarrik da asiera-asieratik elkarrekiko eziketa-bidea daramana. Eta orra gauza arrigarria! Izen aundiko azterketa-lan bat egin-berria da Urola-ballaran; arazo au arrotzerakoan edo aztertzerakoan, izendatzen ditu beste Ikastetxe batzuk; eta ain zuzen eta ain juxtu ere, Ikastola ez du izendatzen. Ikastolak Ikastola izan diranetik ez al dira, bada, orrelakoak izan? Zer dala-ta utsune ori? Aaztu zaielako? Ikastolak ezagutzen ez dituztelako?

* * *

Garrantzizko taldea, noski, erri koskor baterako. Zerbait onik ikusten dute Ikastolako eziketan eta ematen diote garrantzirik, ordain-bearrak izutu gabe jarraitzen duten gurasoek. Datorren ikastaroan ez al dira ortan geldituko! Jarraituko al dute, baldin baitez!, Ikastola-arazoak eta eziketa-gaiak sakonago aztertu aiñean, gero-eta gogotsuago laguntzen.

Bitartean Udal-etxetik babes aundirik ez. Ainbeste lan egiñik dagola ikusita, geiegi ote litzake nolerebait bederen laguntzea? Ikastetxe berriak berri, dagonari eta dabillenari laguntzea...

Guraso, laguntzaille, lantegi ta abarrek ikusten dute zerbait. Lagundu ere zerbaitegatik laguntzen diote Ikastolari. Ikusten dute, nunbait, gezurretako 900.000 pezetak, beti gezurrezkoak eta iñozoren bat edo besteren engaiñagarri besterik ez dirala.

GAZTAÑAGA'K

JAKI - SALTOKI

ALKARTEA

"NATIVIDAD"

San Jose, 13

83-10-25 urrt.

ZESTUA

MOTO-TXIRRINGAK

ERA GUZTIETAKO

SEGUROAK

ETXABE

83-11-06 urrutizkiña

ZESTUA

ZAMAKETA

ARIN ETA ASTUN

"MARCELINO"

83-10-24 urrutizkiña

ZESTUA

"ERREXIL"

ZAMAKETARIA

Erri guzian ezagutzen du

▲

ZESTUA

OKIA T

GAIA

T E

LANABES LANAK

ASA ANAYAK

tarako, loturak, ukalondoak, testak eta polokarteak

za, 15 **16 ta 81 - 16 - 13 urrutizkiñak**

a

IRAETA-ZESTUA

Gipuzkoa

CIODRAZU Y CIA., S. A.

BURALDA OLA

83-11-19 Urrutizkiña

Lantegi - auzo aldean

ZESTUA - Gipuzkoa

LANABES LANDOLA

CONSTRUCCIONES

EGUIGUREN S. R. C.

COER izeneko itzulika dornuak, eta era guzietako ille-ille barruko lanabes-tresnak

83 10 44-83 10 45 urrutizkiñak

Z E S T U A (Gipuzkoa)

Don Martin'en Illoba, Beraz

Don Martin'en illoba «Agur»en. Berriaren gozoa aren lankide izan giñanontzat. Ez dizut berealakoan nor zaitugun ikasi, gazte. Beste Zapirain bat, Erramun ua ere, ezagun bai dizut emen, Donosti'n. Aspaldi ixillik eta ezkutuan ba'dago ere, «erria, gizona» «gizona, erria»ren alde gogor jokatua dezu ua ere, orain urte batzuk. Aurreneko zure idazkiak irakurri ta indar berritua, gaztetua, uaxe ote ziñan gogoak eman.

Urrengo gizaldikoa zaitugula laixter antz emen nion, orratik.

* * *

Don Martin osaba zenun, beraz. «Agur» 43'garren alea irakurri arte, ikasi ez onoko onek.

Elgeta'ko bazkarian mai berean omen giñan. Elkarregandik urruti ez, gaiñera. Ori esan zidan biaramonean, atsegin oso izan zintzazkion ene lagunak.

Ni, ordea, egun aretan, bidearen luzeak erasana. Une batzuetan askok besterik uste ba-zezaken ere, egun osoan nire onera ez. Itxian eta geldirik bi ordu ta geiagoan, berebil-sapaia zeru, aurreko lagunaren bizkarra ikus-muga, erabat nasia iritxi nintzan Elgeta'ra. Ez izaki kaiola-txoria. Ezagun berriak egiteko, abelera kaxkarra.

* * *

Zuk, gazte, osaba Don Martin; nik adizkide min. Deritzaidanez, ezagun ez dezun lagun min saillekoa. Orain zazpi urte, gaur zuri bezela, Don Martin'en beste illoba bati, zuzendu nion idazkia. Ona eskutitz aren amaia:

«Deunoro inguruan Ernani'ko il-errira inguratzen ba'zera, antxe ikusiko dezu lore zuri-sorta osabaren illobi-gaiñean. Oroi eta Otoi. Berrogei ta batgarrenean etxera nintzanez gero, ez diot utsik egin. Adizkidetasun aren izenean natorkizu eskale: Zure E. P. Abestia bialiko?»

Artean ikasle zala ezagutu genun elkar Eusko-Ikaskuntza'ko Uda-Ikastaro aietan. Aiek irakasleak! Ua giroa! Geroko gazteak ez dezute, gizaxook, alako zori onik izan.

Uztaillan, ikastaro bete-betean, arrapa giñun ogei ta amaseigarreneko lur-ikarak. Etxetik alde egiterakoan, suari eman nion eskutitz-kopuru galanta. Tartean Don Martin'enak.

«Euskeraren Laguntzailleak» bazkuna, sortu berria genizun. Euskaltzaindiak babesa eskeiñi zigun. Gure aurrekoak, irakasle ta apaiz, euskerari-egin kaltea, nolabait ere, ordaindu egin nai ondorengook. Ederki ari zan bazkuna bere egitekoa betetzen. Ederki, Don Martin eragille nagusi zula.

Apaizak baiño erantzukizun aundixegoa ba-zuten eta, Euskalerri'ko beste ikasiek, sendagille, lege-gizon, idazkari eta, irakasle-apaizek urra genun bideari ekin ba'liote ta gaiñera zitzaigun ez bearra gertatu ez...

«Ba'litz, ba'una, ba'neki eta, zazpi aizpa omen ziran eta zazpiak alperrak», erasoko dit, agian, norbaitek. Esaera ori bezin zurra ez ote da beste au: «Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu». Ekintzaren mailla guzietan gogoan euki oi dira itz oriek, lan berriari ekin baiño len. Mania Skolodowska (madame Curie)ren amalau urteko lanak baztertu ta berri-berriro «radium» billa ekin bear ote zioten, ba, arkitze arrigarri orretaz gero balia izan diranak? Orain berrogei ta amar urte, Muñoa, Jaunak, emen Donosti'n, ideki zun Euzkadi'ko lenengo euskal-ikastolako irakasleak pozik begira izango zuten aurrea, aurrelaririk izan ba'lute.

Gure Pizkunde arrigarri aren berri, gutxitxo ote dezuten beldur ni, gazteak.

Nork errua? Zarrak? Gazteak? Orok. Itsu-itsu bizi izan gera luzarotxo. Bitartean, gogor ariki etsaia azpi-lanean. Guk, orain zuek dituzuen urteak genitunean, ba-zan burruka gure artean. Bai orixe. Azpi-lanik ez ordea ta belar orrek gure soroan erne ta indar artu bear zunik, ez uste. Arazo onetaz «Hixtorio trixte bat» baiño geiago idatzi dezake nik dakidan batek. Urruña'ko Bertsolari-Eguna aretako bazkalondoa eta...

Asmaketa berriak bai-liran, entzun eta irakurtzen ditugu gaur, orain 40, 50 urte, gure Erriak aztertuak eta ezagunak ditun iritzi ta jokabideak. Orixe gogorazi bear izan dio, guzien aurrean, izlari gazte bati, oraindik orain, Goierri'ko auzo batean. Goikoa'k gure Erria'ri eman dizkion gizon aundi-aundi orietako batek. «Agur»ek ekar berria dizue berorren argazkia.

Aurreak erakusten digun ona artu, txarra utzi ta begiak zabal-zabal oro, elkarren lagun zar eta gazte, aintziña goi-gorantz, aztuerazi nai lizkiguteken Don Martin eta onen antzeko beste ainbeste, gure aurreko jator, eredu artuta.

Ta bazkari edo, amaiketako edo, dana dala aitzeki, Zapirain gazte, ea Don Martin'en illobakin, txolarte gozoa igarotzeko zori ona izaten dun laixter.

IRA'K

LERATE'TIK KARMELETAN

Euskalerria'k leku atsegingarriak eta uri-txiki politak, askoak ditu bere ainbat aldeetako lurraldeetan, eta abetako bat Lizarra lurraldeko Gezala bailleran Alloz'ko urzingira ikusgarriaren gaillur batean tinkaturik aurkitzen dan LERATE degu, gezurrik ez esatekotan.

Uri-txikia, bai, txikirik izatekotan! Bost nekazari etxe aindi baizik ez bait-ditu bere barrurran; baiña alare, Eliz-nagusi ederra du, bertan, eta pelota-toki egokia ere bai, errikideen jolas-aldietarako, bere inguruan.

Bertatik alde batera ta bestera, goi-aldetara begiratuaz, ederragorik ezindako ikuspegi guztiz begiragarria nabaitzen da, bere be-aldean Alloz'ko urgeldun ur-putzu aundia duela.

Sorkaldera begiratuz, berriz, Irurre, Garisoain, Muzkiz, Ezkoz eta Muez ikusten dira, eta ipar-aldera begiratuz, Alloz, Ugar eta Billanoa. Lurralde zoragarria, benetan, Lerate ingurua, atseden-egunak pakez eta gozoro bertan igaro nai dituanarentzat! Lerate'k inguru ain etsegingarria duelako, noski, ainbeste gipuzkoar-sendi urbiltzen da bertara, jai-egunak eta udaldiko atseden egunak gozoro igarotzera.

Aurtengo urte onetan, asmo naigarri orrekin zutitu dituzte, bere urzingira ertzetako gaillurretan, uda-etxe ain politak, batez ere Tolosa'ko sendi euskaltzaleak diran Agirre, Esnaola, Muxika eta Olano'tarrak, euskal-izenez egoki bataiatuak; eta Donosti'ko itxas-gizon ezaguna ta «IRUDIDUN ITXAS-IZTEGI» irakurgarriaren egille dan Garmendia jaunak «GARGOIKO» izenak aipaturiko urgeldidun putzu aundiaren ertzean, zutitu duana ere, ez da ixillean uztekoa.

Eta Karmel'go Ama Birjiña itxastarren Zaindari Donea delarik, aurtengo Karmel egunean ospatu zan, aundikiro, «GARGOIKO» itxas-etxetxoaren oneskunde edo bedeinkazioa, onela: Eguerdiko amabietan, Meza-nagusi ederra, meza emaille ta izlari, udaldia igarotzera Erroma'tik etorrita bertan aurkitzen dan tolosar Muxika Olano Aita, josulana, eta meza-laguntzaille Lerate'ko erretore Jesus Anzin jauna zala ospatu zana.

Bereala, «GARGOIKO» etxearen oneskundea, Karmel'go Ama'ren irudia etxe-aurrean loraz jantzirik ikusgarriro ageri zala. Erretore jauna izan zan ospekundeari zegokion itzaldi xamur bat egiñaz, etxea onestu zuana, uriko biztanle guzik eta udalar denak, Goñi alkate jauna, buru, aurrekaldian zirela. Ondoren, Garmendia etxe-nagusiak, eta Goikoetxea etxekoandreak, edari ta jaki-goxoz gonbiatuak izan ziran kistar-ospakunde unkigarri artara urbildu ziran gizon, emakume ta aur guztiak.

Arratsaldean, berriz, ikusgarrizko ibildeuna ospatu zan, «GARGOIKO» itxas-ontzitxoan Karmel'go Ama'ren irudia agerian zala, putzuko ur-gaiñean, magnetofonoz Arregi'ren Euskal-Meza abestuaz, ikusleen atseginezko txalo-otsean.

Ibildeuna bukaturik, eta ikusle danak berriro «GARGOIKO» etxe-aurrean bildurik, sarizko ume-jolasak izan ziran, eten-gabeko su-ziri otsean; eta azkenik, gabeko amarretan, bertantze, erretore Anzin jaunak guztiontzat errezatu zuan errosarioaz, anaitasunik ederrenean bukatu zan siñismenezko jaikizun atsegingarri ura.

ZELETA

IZURTZA

«Izurtzako Jaiak»

Datorren illaren lenengo igandean asten dira erri ontako jaiak.

Jai onen jarraiera illaren zortzian Erdoitza'ko Amaren jai naguzia ospatuaz.

Aurten Izurtzan ospatuko da «Espatadantzari» eguna. Au illaren amarrean izango da. Goizean talde guztiek batuko dira erriko enparantzan eta ondoren danak jantzan egingo dabe.

Arratsaldean berriz erreglen txapelketa. Aurreskue eta atzeskue dantzatu bearko dabe.

Epai maikuek erabakiko dute zein taldek obeto egingo daben eta arentzat saria.

Onebestez amatiuko dira aurten Izurtzako jaiak.

A'TAR M. G.

SAN MIGUEL

Euskal idazti ta eresmitzak. Gaur, atzo ta beti-betiko Euskal-gaiak bakarrik eskeintzen dituan etxe bakarra.

Nere aldetik ezertara beartu gabe, zuen euskal-jakitza arloko bilduman dituzuen idazlanen berri jakin nai nuke,

Izenpena:

.....

Izena: .....

Abizenak: .....

Bizi-bidea: .....

Urrutizkiñak,

Lantegian: ..... *Etxean* .....

Zuzenbidea: .....

Erria: ..... *Erkia:* .....

Alameda de Urquijo, 60, 5.º, izq., Bilbao, 11'en degun gure lantokira bialdu arren zerzelada onek.

Martin Aldazabal TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

KIROLAK

ARRAUNKETAK

Zarautz'en izan giñan estropadak ikusten. Zarautz jedez leporaiño betea zegon. Ikustaldi ederra. Bai-nun gogo bizia getariarrak ikusteko. Esan geinke, auek daudela aurten jaun ta jabe arraunean! Ikusi ta siñistu. Bederatzi treiñerillak asiera eman zioten, iru ebillaldietan. Lenengo bi taldeak utzirik, atzetik izan bai ziran, irugarren taldean auek ziran: Lenen, GETARI = 16 miñutu ta 46 segundo.—Bigarren, SAN JUAN= 17-24.—Irugarren, Ondarrabi = 17-54-10.

Orain arteko jokaeren guztitakoak bilduta, puntu auekin gelditzen dira iru lenengoak: GETARI = 27 puntu.—SAN JUAN= 24.—Gaiñontzekoak 17; 16; 11; 10; 5 ta 4. Iñaki deunaren egunean San Juan'en jokatuko dute.

* * *

Donosti'ko urteroko estropadak aurten ikusgarriak izango diralakoan gaude. Treiñeru pilla ederra bai dator Kontxa'ra. Getari, Orio, Lasarte, Ernani, Donosti, Arraun, Lagunak, Pasai Sanpedro, Beraun, Pasai Sanjuan, Zubero ta Ondarrabi. Irugarren estropadan sei treiñeru onenak jokatuko dute, estropada ontara etorriko dira gaiñera Bizkaitar eta Santander'ko treiñeruak.

* * *

Pasai'ko estropadak izan ditugu gero, ibai onek Abra'koaren antza du, inguruetan lau erri, iru Pasai'ak eta Trintxerpe. Beraz ederki ikusten dira sayoak. Lenengo saioan: Astillero, 17-21 ta 6/10; Getari, 17-59 ta 5; ta Sanjuan, 18-06 ta 4. Estua izan ba'zan Getari ta Sanjuan'ena, bigarren zaioan Orio ta Lasarte aldea, ia berdin, palada baten aldiaz, onela: Orio, 17-46 ta 3; Lasarte, 17-46 ta 5; Sanpedro, 18-19 ta 3. Ori zan estropada jaunak! Irugarren saioan etzuten bukatu, Donosti ta Beraungoak balizari bira ematean alkar jo zuten-eta. Urrengo egunean, illaren 30'ean jokatu zan bigarren arraunketa, eta danera onela gelditu: Astillero aurrena, 34-48 ta 3; bigarren Orio, 35-29 ta 3; irugarren Lasarte, 35-48 ta 9. Gero onela urrengoak: Getari, Beraun, Pasai Sanjuan, Pasai Sanpedro, Donosti ta Arraun Lagunak.

Ez gendun uste olako gertakizunik, onek esan nai ote du aurten ez daudela oriotarrak igaz bezela? Kontuz apostulariak... Onduen, aurrena datorrenari txaloak jo ta kito.

* * *

Illak 31, ta Pasai'n treiñerilla estropaden jarraia. *Getari garaille.* XIII ligilla bukatu da. Getariarren bikaintasuna aundia izan da, jokatu dituzten treiñerilla txapelketa ontako estropada guzietan beti LENEN elduaz. Sanjuandarrak izan ditu beti bigarren. Guziaren banaketa egin ondoren onela gelditu dira: Lenen GETARI; bigarren Sanjuan, gero ondoren, Ondarrabi; Zumaya A ta Ernani alkartuta; Zuberoa B; Zuberoa A; Zumaya B ta Ernani A. Beraz, getariarrak TXAPELDUN. Bejondeizuela!

* * *

Euskeraz idatzi ta izparringietan agertzeko estropada kontuak, beranduegi izaten da dakigunez. Ala ta guziz ere, batek baiñon geiagok ez dute erderazko izparringirik irakurriko ta, menturaz, bai euskerazkoak. Beraz, esan dezagun zerbait, Donosti'ko nagusieri begira.

Ondarrabi'ko Iger itxasoan jun zan igandean, bederatzi treiñeruk jokatu zuten. Estropada joka bide au izan da lenengo bost treiñeruak gero Donosti'ko Kontxan jokatzeko, beste lau azkenak ez jokatzekotan gelditurik. Kontxa'rako seigarren treiñerua, Lasartetarrena, egun berean Koruña'n zan, an jokatu bearra izan zulako, irugarren gelditu ziran an. Lenen Astillero ta bigarren Santander zirala, ta Lasarte'n ondoren Sestao, gero Las Jubias ta azkena Oleiros izan ziran Koruña'n.

Lasartetarrak ara joan ba'ziran, emengo treiñuru batek joan bear zulako jun zan. Oriotarrak ez zuten joan nai izan... zergaitik? Berak jakingo dute, naizta guk antz eman.

Goazen arira, Ondarrabi'ra. Egualdi txarra zegon. Izan ere aurtengo dagonil au zearo txoratuta dabil. Estropada ontan ikusi degun biraketa, ikaragarria izan da, alegia, Ondarrabi ta Pasai Sanpedro'ren etorrerak. Batez ere, ondarrabitarren jokaera zearo auldu da. Nun dira orain urte asko ez diralako jokaldi aiek? Orduko tostarteko arraunlari aiek, nun? Gaur ez daude arraunean, ta ori dala uste det okerra.

Sanpedrotarrak ostera, ez daude sasoi artako AITA MANUEL patroi aundi ta famatuaren unean bezela. Sanjuandarrak ere izan zituzten urte onak, naizta gaur egunean orduko aztarranik izan ez. Ala ere ederki dabiltz, eta getariarrei buruko miñak eman. Getariarrak, nere ustez, naiko egiten dute, ogeitamar urte auetan lenengo aldiz bai dabiltz treiñeru aunditan. Aurten zerbait egiten ba'dute, datorren urterako asmo obeak izango dituzte. Baiña ematen dituzten sari txepel oiekin, ze gogokin asi barriro saioetan?

Ona emen Ondarrabi'ko estropadan bederatzi treiñeru oien etorrera: Lenen, ORIO, 20-26 ta 4; bigarren Beraun, 20-35 ta 0; irugarren Getari, 20-45 ta 1; laugarren Sanjuan, 20-45 ta 2; ta bostgarren Donosti, 20-58 ta 2. Gero onela: Pasai Sanpedro, Ondarrabi, Arraun Lagunak eta azkena Zuberoa.

Aurtengo estropada guzietan Getariarren eta Sanjuandarren arteko estu jokoa izan da ederrena. Ikusleak bi talde oieri begiratzen die, ederragoa dalako alkarren joko ori, ta ez aurretik bakarrik datorrenari begiratzea.

Bigarren jokaldian KAIKU bizkaitarra etorri zan lenen onela: Kaiku, 15-23 ta 4; bigarren Santander, 15-26 ta 2; irugarren Ondarrabi.

Dagonil onetan beste bi estropada gutxienez izango ditugu emen, eta beste bi Bilbo'ko Abra'n. Gutxi ordainduten dutela sarietan, baiñan ala ere, arraunekin itxasoari bisutsak ateratzeko gogoa bai-dute.

Ori naiko ez dala, Getari'n ere jokatzekotan dira anaitasun antzeko arraunketa bat. Aurten dira ELKANO aundiak munduari bira eman zionetik laregun ta berrogei ta amar urte. Origaitik egundako jaiak dituzte getariarrak. Getari'n egun sonatua izango omen da, ta guziok dakiguna da: Elakano'ren etorrera berriztua, karrozak, itxasontziak, eta nik al dakit beste zenbat ikusgarri!

Erri txikia da Getari, ala ere aleginduko dira notintza ugaria moldatzen.

E. OZKIN

Pio Baroja'ren omenaldian

Azken aldi ontan, aize bolarak mugitzen du «Itzea» deritzan Barojatarren etxeko teilatuko aize-orratza.

Bidasoa'ko Bera'k (Baroja'ren erri ordekoa) omenaldi errikoia moldatzen zioela jakitean, Dagonillaren 13'an, ene adiskide min den J. Gamecho eta ni an giñan, itzaldi bi entzun naian, egun ortan, Udaltetxean, eta gero apari errikoian ere parte artu naian.

Euria ugari, mardul, ari zen. Bidasoa erreka, aldiz urdin, aldiz berdexka, orain estu, orain zabal, emen izkutuan, an agirian, beeraka doa, itsasoruntz. Zoin erreka ederra! Aspaldidanik maite ditut Bidasoa'ko lurraldeak, baita ere Baztan'go ibar ezeak. Ura begien atsegiña!

Arratsaldeko zazpiak. Udaletxean. Gela, aski zabala, gaiñezka dago entzulez. Itzaldi bi. Leenengo, Yosu Pabon, andaluziarra, Histori-Akademiaren leendakari dena, mintzatzen da. Egoki eta erriak ulertzeko eran. Gaztelaniaraz noski. Itzaldiaren azken atalean, ematen dio Iruiña'ko eguneroko bati jipoi ederra, Pio Baroja goratuaz eta XIX mendeko Narbaez jenerala oraindaino eman zaion baiño onore andiagoan ipiñiaz. Bere itzaldiaren aria edo muiña au izan zen: Pio Baroja irakurri gabe, ezin ditekeala ongi ulertu XIX mendea. Bera'ko idazlea, nobelaria ez ezik, historigillea bezala azaldu zen Pabon'ek eman zigun ikasgaian. Txalotua izen zen luzaro. Ondorean, Izkuntza-Akademiaren leendakaria, Damaso Alonso, mintzatu zen, gaztearoan, P. Baroja irakurtzean, jaso zituen esperientziaz.

Illuntzeko Amarrak. Pelota-tokian, afaria. Naiz eurixka egin, beldurrik ez dugu, itxia bai da Alzate deritzan auzotegian dagoen Pelota-Tokia. Olezko aulki eta mai luze soil soillak. Zikiroa ugari. Zagiko ardo lodi, usaidun, bikaiña. Gazta puska eta akeita. Gero, euskal kantak. Dantza askatuak. Ba zen antxe gazte jator ugari; geienak, bertakoak; asko Lesaka'tik edo Doneztebe'tik etorriak.

Zoragarrizko eguna! Pelota-Lekuko jaia ez nuen bukatu nai izan, itz batzuk euskeraz esan gabe. Azken itzak auek izan ziren: Bidasoa'ko Bera, gora! Nik uste dut erantzuna entzuna izan zela, Etxalar'ko usategietan ere. Ta gero bakoitza bere bidetik.

Dagonillak 20.1972.—Urteoro bezala, goian aipaturiko ene adiskidea eta biok ba goaz berriro Barojatarren etxera, ots, Itzea'ra. Eguraldi bikaiña. Gu biok, bazkaldar deituak, itsasoko zenbait bizigarri; etxekoak, aldiz, mendiko edo lur-barruko zerbait. Onela osatu oi da otordua. Giza-giroa ezin obea. Egoteko denbora laburra denez gero, elkarri ezin eman, ezin opa mintzatzeko txanda. Usteonekoa, leiala, mamitsua eta gaiari dagokionez gure-gurea izan zen alkar-izketa. J. Caro Baroja'ren aldetik eta egungo Euskal-Erriari dagokionez, aski ituna edo tristea bere pentsakera. Ba du ortarako arrazoiñik frango. Bere itz batzuk gogoan izango ditut. Euskal Errian gertatzen ari dena jenozidioa baiño okerragoa da, dio, oraindik. Ez euskal erria, baizik euskal ama-lurra zearo ondatzen ari da, euskal burgesia kausa eta medio dela. Gipuzkoak «un estercolero» dirudi, dio, baserriak pikutara joan eta erreka nausiak usteldu ondorean.

Alare, Naparroa or nonbait aurkitzen zen. Baiñan, orain, Naparroa bera ere ez da ondamen eta ustelkeriatik aske eta libro. Bidasoa'ko erreka lilluragarria, orra, bere ertzean finkatuta dagoen lantegi baten bidez eta zori gaiztoaz, puzuniatu da. Izokiak, illotzik, tripaz gora dagoz. Gure landa eta baserriak (erriaren muntegi edo biberoak) beeraka doaz.

Bazkal ondoko jardunak amaitu dire. Donostia'runtz bidea artu baiño leen, J. C. Baroja'k eta biok jarduntxo bat egin dugu. Igaz bezala aurten ere, lelo berdiña darabilki bai biotzean bai adimenean.

Oraindik, euskaldunok ez dugu Euskal-Historiko-Iztegi jator bat. Zenbait ofizio eta bizibideri loturiko itzak, eunka, millaka, palastaka, jaso daitezke. Ori esatean, J. C. Baroja'ren begiak (aurrez somatu dut) Iruiña eta Auiñamendiaren artean ixil-ixilik, bake bakean, dagozten ibarretara dijoaz. Adibidez, Imoz-go baillarara. Igaz ere, aolku edo konseju berdiña. Ezarri zait biotzean, suaren indarraz bezala.

Ez leen, ez orain, ez dago agitz konforme (Naparroa'ri begira) L. L. Bonaparte printzeak moldatu zuen euskalkien mapa famatu arrekin. Nik, ene aldetik, azaltzen diot gure Ataun'go izketa zerbait koipeturik edo kutsuturik dagoela Burunda eta Arakil-ibarretako euskalkiarekin. Baiez, dio. Burunda'koa, ordea, bere ustez, ez da besterik (Urdiain errixka aipatzen du), garai batean, Araba'n itzegin zen euskalkiaren ondorengoa baiño.

L.L. Bonaparte'ren mapan, bere ustez, erdiko Naparroa edo, bere itzez, «Navarra central» faltako lizake. Bidasoa'ko izketak, aldiz, bestaldeko euskalkiekin zer ikusirik asko ba dula, dio.

J. C. Baroja'ri esker, Itzea euskal izkuntzaren eta historiaren erlikario eta kutsa aberatsa dugu. Eta agur egitean, urteoro bezala, erregalotxo edo esku-erakutsi bat: Pio Baroja'ren «Inquietudes de Shanti Andia», nobela.

Esker milla eta datorren urte arte!

J. LASA



Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

ERRIETAKO BARRIAK

Morga

Egundoko jaialdi ederra izan genduan morgatarrok aurtengo Santiago egunez. Morga'n ez dala olakorik sekula ikusi esan-da-esan egiten eban jendeak. Ta errazoi aundiz, nik uste. Orrenbesteko beste jaialdi bat eratuten gatx izango da gure erri onetan.

Amaiketan meza nagusia bertoko eliza nagusian. Lupe deritxon Bermeo'ko neska gazteak ezin obeto abestu euskun. Ba dauko gatza neskatilla orrek, gaztetxo izan arren be. Gero, meza ostean, Bilbo'ko «Dindirri» taldeak era guztietako euskal dantzak egin euskuzan eliza aurreko enparantzan. Euskaldun begientzat ikusgarriago daitekenik bai ete? Ez da errez izango. Irurogei ta bost gazte ta gaztetxo etorri jakuzan Bilbo'tik, aurtengo jaiak euskal kutsudunak izan gengizan. Auzo ta erri txikitan be ba daukagu gaur egun euskalduntasunaren premiñarik, edonongo ta edozelango kanta ganorabakoak entzuten gogaituta gagozeta. Ta onango erbestekeriak zein kalte aundia egin oi dautsan gure euskal izateari!

Ordubete baiño geiago iraun eban «Dindirri»koen ekitaldi zoragarriak. Morgatarrok egundo alakorik ikusi bear genduanik be ez jakun bururatu. Mutillak eta neskak, txandaka ta batera, zein baiño zein obeto ta trebekiago. Jende guztia adurra eriola ta ao-zabalik egon zan enparantzen inguruan, begirik kendu barik eta zirkiñik egin barik. Antxe, aguretxo ta atsotxoak poz-eztitan. Antxe, gazteak zorabiatuta. Antxe, umetxoak euren begi ederrak geiago ezin-ala zabaltzen zituela. Ardangelak be utsutsik, basu-erditxo bat artzeko be astirik iñok ez eukan-eta. Alango ikuskisunik!

Dantzaldiaren ondoren euki genduan euskal giroa be ez zan txantxetakoa izan. Morga'n beiñik-bein ez gara berealako batean aaztuko. Bazkari bitartean ez ei zan etxe guztietan beste esanik entzun: «Ori izan dok ikustekoa, ori!» «Iru ordutan be pozik egongo nintzoan ni!» «Beste orrenbeste etxuagu egungo ikusiko!»

Arratsaldean, Andra Mari izeneko auzoan izan genduan abesti saioa. Antxe entzun genduzan Mungi'ko Zarraga'ren, Bermeo'ko Lupe'ren, Derio'ko «Elaiak» irukotearen eta Bilbo'ko Goienaga'ren ainbeste kanta eder.

Morga'ko erri guztiaren izenean bioakie gure eskerrona jaiok eratuteko arduratu ta alegindu diran guztiei. Eskerrik sutsuenak Joseba'ri, Lourdes'i, Iñaki Egurrola'ri ta Xabier Goirigolzarri'ri. Baita eskerrik asko «Dindirri» taldeko dantzariei, Mungi'ko txitulariei ta abeslariei be. Zuei zor dautsuegu Morga'n iñoz ikusi ez dan lako egun zoragarri au. Illunkeran gure erritik aldendu ziñienean, olako utsune bat nabaritu genduan gure barruan eta Morga umezurtz baten antzera gelditu zan.

Barriro be gure erri onetan ikusiko al zaituegu!

MORGATARRA

Ondarrabi

ONDARRUTARREN ANTZERKIA.—*Ondarrabia'n Santiago eguna jai aundia izaten da, arraintzaleen anaidiko buru berritzea izan oi dalako. Ta jaiari bere izatea arraintzaleak ba'damakiote, urteroko Kutxa-Entrega izeneko jaiaz gaiñera, ondarrutarrak an eta emen garaipen aundiak lortuaz ematen ari diran MARIÑELAK antzerkia bertan ematea ezin-eta obeki zetorren. Ta alantxe egin da. Santiago aurreguneko gauean arraintzaleen bizi-toki dan kale batean aukera-aukerako tokia egokituta gorago aipatu degun antzezlana eman zuten.*

Emengo jendearentzat berria zan, iñoiz ere ikusi gabea, zartzuela antzeko euskal teatroa, ta zer ikusiko egundoko lagun pilla bildu zan ondarrutarrak ikustera. Ta ez zitzaien damutu, ez orixe! Gure erritarrak aspalditik erakutsi dute maixutasuna olako lanetan ta Zubikarai'tar Agustin'ek idatzi ta Azpeitiar Altuna'tar Jose Mari'k ain musika atsegiña jarri zion antzezlan orri, ederki atera zioten koipea, D. Imanol'en zuzendaritzapean. Ondarrabia'ko kaleetan gutxitan adituko zan ainbeste txalo. Ta bai ongi mereziak!

Aulestia andreak eta Solabarrieta'tar Xabier'ek edozein profesionalek bezela abestu zuten. Aiek duoak azkenengo laukikoak! Beste bakarreko abeslariak be ondo. Abeslari taldea gain gaiñekoa. Antzezlana ere goieneko maillan egin zuten, gure adiskide zar Atxukale buru zala. Itz baten esateko, dana ederto, emengo jendeak bereala aztuko ez duan eran.

Ta gu, emen inguruko ondarrutarrok arro-arro. Uste degu antzerki onekin «Kresala» taldeak batera-bestera asko egingo duala, merezi du-ta.

Ai! Ta ia aztu zitzaidan neure laguntzar Azpillaga bertsolari ospetsua. Beronek bertsotan jendiari jakin arazten zion egiteko zanaren gaia ta lenbiziko txaloak beretzat izaten ziran eta gure azkenengoak ere beretzat dira.

KAMIÑAZPI

Tolosa

«AMALE»RI.—Zorionak! Erabateko zorionak. Ez bait-da utsaren urrengoa amona izatera irixtea. Gorako mailla bat, gizartean. Eta ez nolanaikoa. Idatziaz gaiñera, ba-dezu orain beste eginkizun bat. Baiñan zuk... idazten jarraituko dezu, zenbait gazteri ikaskai ederra emanik.

«FAR-WEST».—Lurralde orretara gure jaioterria itsatsirik ote zegoan, iduritu zitzaidan aurreko igande baten. Beartsuen udara urian igarotzen da, eta ni, egun orretan, txuri bat edaten nengoan.

Eguerdi-eguerdia zan. Berealdiko deadarrak entzun genituan, ta edantokian geundenak kalera irten giñan. Zer zan ura! Sei bat ijito, lauek pistola eskuetan eta beste bat aizkora, eta bestea aizto aundiarekin alkarri segika, kaleak igaroaz, oiuka eta amenazoka. Tirotxoren batzuek ere izan ziran. Orrelako pelikulak arriskugariegiak diralako... ixilik eta arriturik gure tokira itzuli giñan. Itzalpean daude, orain.

Baiñan zenbat ijito dabil ortik barrena zeru eta lurren jabe?

DEUN IÑAKI.—Oroitzetan joan zitzaigun egun au ere. Bestelako aunditasunaz ospatzen ikusiak gera, ezpatadantzari giñanean, Bilbo'ko edo Donosti'ko ezpatadantzari bilketa aundi aietan. Eta orduko arintasuna...

Besterik ezean, eleiz soiñua Deun Iñaki' ren Ereserkia jotzen asi zanean, abestiari lotu gintzaion, onela:

«Iñaki, Jainkoak bidaldua
ludian izateko
Josu'ren gudarien burua»...

«SASI BATASUNA».—Oraintxe ia-ia bukaturik dira liburuxka auek. Eskea, berriz, ez da nolanaikoa. Aditu ere aditu degu beste argitaraldi edo edizio berriren bat egitera ote dijoazten. Egia ote? Ea egarri ori asetzen degun. Ez aaztu, Labayen jauna, argitaraltzea ezin bestez garai egoki-egokienean gertatu dala.

MENDIZALEAK IRAN'EN.—Paris, Estambul eta Teheran'dik barna iru tolosar: Xebe Peña, Mikel Arrastoa eta Jose Luis Zuaznabar; eta lau bilbotar: Juan Agirre, Ignacio Barbara, Karlos Abadia eta Alfonso Verdugo... egazkin lapurtzailleen beldurrik gabe, Iran'eraiño joan zaizkigute. Emen, Demavend izena duan mendi goitua (5.670 m.) igo dute. Sumendi bat da mendi au. Onegatik, edurrak iru milla metrotik lau milla metroraiño bitartean omen zeuden. Emendik gora, sumendiak jaurtitako azufreaz kutsututako arriak omen. Bai omen zebiltzan mendi beretik barna beste mendizale batzuek: englandarrak, alemanak, japondarrak eta abar.

Gero Kaspio itxasoan ken ateratako izardiak, preskatu eta berri-berriturik egazkiña artu zuten Zurich'eraiño. Emen, Alpe'tan, Dom (4.545 m.) mendia igo. Eta etxean ditugu berriro, beste onelako ibilladi bat egiteko prest.

Zorionak euskal mendigoizaletasuna urruti oietara ain ongi eramaten dakiten adiskide gaztei! Gazteak, naiz bata-beste berrogeitamazazpi urte bakoitzak.

UXOLA

Zeanuri

Karmele Iturbe, lekaimea, bere opor aldiak igaroten emen, gure artean izan dogu, egun batzuk igaroten, Elizondo'n, bere etxean. Prantsian egon arren, AGUR' eko arpideduna dogu baita irakurle zintzoa be. Zorionak eta jarraitu bide orretatik.

«Igertu»ko landan bedar ebaten. Atseden alditxoetan «AGUR» erako zer idatzi pentsetan. Euskaldun olerkari bategaitik irakurri neban, bere inguruari begira olerkiak atonduten ebazala. Niri be orixe etorri gogora: ingurura begira asi ta aurrez-aurre umetxoen eskolak ikusi. Or euskerarik ez dakien maixumaistrakaz, eskolatik urten eta geienak erderaz.

Etxeetan, euren gurasoak bardin, ainbatek, eskolea obeto ikasiko dabela-ta. Ori gogoan erabilli ta azaldu neutson gazte bateri. Erantzun au emon eustan: «Zuri zer ardura dautsu ba? Farola zara gero!»

Orduan ixillik geratu nintzan, bear ba'da baten barri ondokoak obeto jakiten dau-ta. Baiña AGUR'en irakurle ba'da gazte ori, erantzun au emon gura neuskio ba. Ni farola eta zu argia izaten ba'gara, zeozer bion artean egiten ba'dogu, gauza barria? Batzuk martiri ta beste batzuk ardura gabe, ori ondo ez dagola esan lei, ba.

Gaur Justo Pastor deunaren eguna dogu ta jente asko bertaratutzen ikusi dot. Ni ezin joan izan naz, baiña jokera andia dago eguna bertan igaroteko. An dira zugaitz-zelai aundiak, baita iturri garden ederra, Gorbei'ra doazenentzat atseden tokia. Mezea amaika t'erdietan izan da, Jose Migel jauna, geiago ezin esan eta, ixillik gelditu...

GORBEITARRAK

Bermio I

Uda sasoiko arraintzaleen ibillaldia gutxi gorabera denok dakigu nolangoa dan. Kepa deunaren jaiak amaitu ondoren ateratu giñan itxasora. Bordele alderuntz karnata bizia egitera, baiña lau egun igaro ondoren karnata egin barik, alde egin gendun Azores alderuntz. Esan bearra dago zainja ona izan dala, bata-bestearen kontuan ondo arrapatu dogu. Baiña berriz aurkitzen gara Bordele'n, geure sei millako mugan karnataren premiñaz eta egualdi txarragaz; orregaitik gure umorea ez da makaltzen. Gaur Iñaki Deunaren eguna dogu eta ori kontuan arturik txalupako gizon guztiak biribillean batuta ospatu dogu, Iñaki Deunaren abestiagaz asita beste batzuekaz amaitzeko. Berak lagundu daizkula bear doguna egiten.

Bermio'ko Ikastolatako batzordekoak zintzo-zintzo ari diraz lanean Ikastolaren alde zerbait egiteko. Lenbizi daukien asmoa da urrutik-ikuskin baten sosketako txartelak saldu oraindik asita, eta erriko jaiatako, Barakaldo-Sestao taldeak parte arturik, jokoaldi bat antolatu, talde oietan bost bermeotarrak jokatzen dute-ta. Abeslari aldetik ere, ba-dauku zerbait esateko, Estitxu'k eta Zorion Egileor'ek egingo dutela euren jardunaldia Ikastolaren alde. Eskerrik asko denori, Ikastolak ba-daukee laguntzaren premiña-eta.

Euskera dalata ba-da aspalditik burruka gogorra euskaldunen artean, nere eskuetara ez da etortzen aldizkaririk gai au erabilli bakorik. Batzuk agertzen dira «H» ta batasun zaleak, beste taldekoak «H» gabeko euskera nai dabenak baiña ez orrexegaitik batasunaren aurkakoak. «Bakoitzaren irtxiz deñok arraxoia». Alde bietan ikusten dira gizon jakintsuak eta euren iritxiak errespetagarriak diraz, batez ere ni bezelako beko maillako euskerazale batentzako. Baiña ez dot nai orrexegaitik nire iritxiak azaldu barik gelditu. «H»'ren aurkalaria ez naz, baiña, argi ta garbi, ez dot maite neretzako ostopo bat geiago dalako, eta beste askorentzako ere bardin ikusten dot. Beste aldetik ez dot ikusten itz orrek ze garrantzi dauken batasun bat lortzeko. Bermio'ko euskera utsagaz ibilli nintzan Lapurdi eta Gipuzkoa aldetik gazte-gazte naizala, oraindikan batasuna itza sortu barik zan, eta ondo ulertzen nebazan alde bat eta besteko euskera. Jakitasunik eneban baiña bai egarri aundi bat, gure izkuntzaren egarria. Bearrezkoa dala euskera literarioa lortzeko, eta batasuna dala-ta, euskal jakintsuak alderdikeri lana egiten dabiltzan artean erriko euskera galtzen. Erria alkarren aurka eta danok euskerazaleak.

Nere erritar bateri galdetu nautsan AGUR dala-ta, eta erantzun eustan, laga egin dabela «H» artzea ta batasunaren aurkakoa dalako. Anaitasunagaz gelditzen zala. Nik ere parte artu neban aldizkari au sortzen eta arpidedun jarraitzen dot Euskera maite dodalako, baiña esan bearra dago aldizkari onen batasunaren aldetasuna dala-ta. Emen agertuko dodaz idazlan batetik bakarrik artutako erdal itzak: eskritorea, bokazionatua, klasifikasio, klase, bugalo, termika, kapitain, gradoan, partikular, sententzia, solemne, poesia, fantasmak, imajinatu, paradisu, kontinua, trankilago, desterratzea, errezibitu, famatuak, estudiatu, katalogatu, karakteristika, fedea, santua, gerra, ignora, liburua, erlijioso, poema, lectura, posible, segurantza, zentral, profesional, edukazio, kolore, publikatu, hazaña, duda, noblea, fotografia, molestatu eta abar ta abar. Euskera batu orren laguna ete da gure erritarra? Ba gure umetxoak ez daukie zertan ibilli euskera ikasten ori ba'da obiena, amaren magaletik dakarrena pizka bat obeagoa da-ta.

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Bermio II

Irailleko 8'an gure erriko jai nagusienak ditugu, eta ospetsuenak. Onein zain eta pozagaz egoten gara erritar guztiok. Ta poz orregaz gauden ezkero, Jai-Errikoiak izatea gura genduke, bestela ez litzakez izango erriko jaiak eta erri-jaiak.

Igaz, aurren euskal-jaia ospatuteko eguna aukeratuta egon zala entzun neban, eta ez zan ospatu. Nire ustez, oker ez ba'nago, ez litzake txarto izango erriarentzat, Umeen euskal-jaia ospatutea, ezta euskal leiaketa bat nok obeto euskeraz idatzi, irakurri ta itz egin, umeentzat eta zarragoentzat, itxurazko sariekaz.

Erderaz danak edo geienak dakie, irakurtzen eta idazten, baiña euskeraz ez, gitxik izan ezik. Au zoritxarra gure erriarentzat, Euskalerriarentzat, eta tamalgarria euskaldunontzat, burue daukagunontzat.

Oneri itxi egiñaz, nuen lengora. Igazko urtean, Irailleko jai ospatsuetan, entzuntresnak edo dalako mikrofono-altavozak txarto egon ziran, bai goiko enparantzean, baita Lameran be. Orreek txarto egon ziralarik gogoratu errixek-eta... zer esango eban! Madalen donearen eguna, ondo be ondo eratuten dabe jai-eratzailleak, alaitasun andia izaten da gure errian. Aurtengoan be alaitasun andiagaz gertatu ditue ospatzailleak. Ta Madalen deunaren egunean zelako jaiak ospatuten diran gure errian jakiñaz, auzoko errietatik notintza andia etorten da Bermio'ra, eta alaitasunez ibilten izan dira urteetan zear.

Arraintzaliok ezin izaten dogu ospatu jai ori, gitxienak izan ezik, au da Madalen deunarena. Irailleko jaien pozaz izaten dira itsastar arraintzaleak, eta oneik onak izan ezik, errikoiak edo erri-jaiak esan gura dot, ez litzakez izango Jai Andiak eta Ospetsuak nire ustez. Madalen deunaren eguna ondo eratutea, ta Irailleko jaiak atsegiñezkoak ez izatea, zer esan gura dauskue? Ez da niretzat erreza erantzutea. Ea aurtengo Irailleko jaiak atsegiñezkoak izaten diran erriarentzat.

EGALUZEAK.—Etorri jaku egaluze garaia, baita egaluzea edo atuna be, etorri da, baiña bera arrapatzeko prest gauden guztiontzako ez da etorri. Onegaz esan gura dot, itsas-ontzi txikiak ibilli bear diran uretara ez dala etorri, eta orrexegaitik ez dogu eta ez dute arrapatu egaluzerik, ez dute arrapatu itsas-ontzi guztiak arrain ori.

Ontzi txikietako arraintzalien poza potzura beintzat Dagonil erdirartekoa, eta eskerrak Jaungoikoa'ri lebatzagazko irabazia izan dogulako bermiotar ontzi txikietako arraintzaliok.

AZPEITIA'TAR GOTZON

Ea

Gure erri au izenez txikia dala ikusten dozu: Izatez be alantxik da, txikitxikia. Danetara BOSTEUN biztanle izango gara. Ori neguan. Udaldean... udazlez beteten yaku: BI MILLA-edo etorriko dira: geienak Bilbao'tik: geienak euskeraz ez dakitenak. Negar egitekoa da: Euskaldun uts-utsen umeak datoz euskeraz berbarik ez dakitenak: Baiña poztutekoa eta txalotutekoa be bai: asko ez, baiña naiko umetxu dator euskeraz polito egiten dabenak: Bilbao'ko Ikastoletako umeak: Bejonak eta zorionak umetxu auen Andereiñoei!

ETXEAN POZIK.—Izparringietan ikusi dozue, Panama aldean, «Jose Luis Aznar» itsasontzia galdu dala. Estanda andi baten ondoren su artu eban; gizonak amata guraz ekin eutsen gogor lanari; dana alperrik! Ontzia itxi eta boteetara yatsi bearra izan eben. Eskarrak laxter etorri yakela dinamarkatar ontzi bat, eta onek jaso ebazan. Iru egunean sutan egonda urperatu zan gure bilbotar ontzia. Irureun eta geiago «PEUGEOT» frantzez izeneko berebillak yoan dira urpera, kamioak, traktorak, neumatiko pilluak eta abar. Bertako kapitana, gure erritar maite dan Eusebio Alegria. Marmitoia, Ea'ko seme dan Jesus Laka, biak ondo. Etxean pozik dagoz: egotekoa be ba da-ta. Zorionak, Eusebio eta Jesus'i.

ERRIETAKO BERRIAK

BATEOA.—Martija'tar Yon Mikel'ek eta Aranburu'tar Mari-Bi'k, seme eder bat ekarri dabe eta bateoan «OSERTZ» izena ipiñi dautsoe. Zorionak gure bi lagunei!

GURE ERRIKO IZPAR BALTZAK.—Emengo ingiola edo papeleran, yazokun itzal eta negargarri bat izan dogu. Bertako biargiña izan dan Boni Aldamiz'ek **eriotza topa dau biarrean ebillela: teillatura igo eban, ankapean «uralita» dalako ori apurtu yakon eta goitik bera yausi zan: asko zauritua gertatu zan. Lagun biargiñak altza eben Basurto'ra eroateko asmoz: ara orduko bidean il yaken. GOIAN BEGO gure lagun ona.**

Ea'ko BEDARU'n illeta ederra ospatu da bere arimaren aldez: elizan lagun asko; altaran, alkar-meza emoten ainbeste abade Pasiotar: meza-emoille-buru Boni'ren anai Pasiotarra. Bere emazte alargunari, alaba, ama zarrari eta senideei gure samin-agurra maitekiro.

BEDARU'ko elizatxuan bertan, eta egun berean, beste illeta bat ospatu zan: Au, Imanol Lejardi'ren **arimaren laguntzarako. Imanol Lejardi gizon ona eta ezaguna benetan, emen eta inguruko erri askotan: Eibar aldean be ezagunezaguna. Umetatik ikusmenbakoa izan zan: itsua. Gauza asko ikasteko erea izan eban eta ikasi be bai. Amaikatxu meza eta elizkizun edertu eban, armonioa yoaz, bere yaiotelizan. Soiñujotzale yaioa izan da. Irabazpide geiago izango ebala, eta «ANGIOZAR» eko bere lagun itsuak, Eibar aldera eroan eban eta an bizi izan da azken urte auetan: an eta emen adizkide asko euki dau: Argi ikusi zan illeta egunean. Bere anai-arreba eta senideei atsekabe-agurrik beroena.**

Egun berean, baiña au Natxitu'n, irugarren illeta euki gendun, Silloniz'tar Eustakio'ren gomutaz irugarrengo au. Elizkizun onetan be oztetza aundia batu zala ba-dakigu. Eustakio'k eta bere emazte eta seme-alabak adizkide onak eta ugari daukela agirian geratu da. Sendi ona eta euskaltzalea itxi dau Eustakio'k. Jaungoikoa'k zeru ederra emon dautso: Ama eta seme-alabei emon dagitsela biotz-barruko gozo eta bakea.

IATARRA

Altzatzu

OLAZTI'KO JAYAK.—*Altzatzu'tik Gaztelu'erako burnibidean, iru kilometrora, «Olazti» erri polita dago. Bi milla bezelatsu lagun ditu, fabrika txiki bat edo beste be bai, baiña entzute aundikoa, «Cangrejo» deritxoen portland fabrikea, 1914'an asi zana.*

Eleizan berriz, Bilbo'ko «Dourte»k egindako organoa. Ez arek egin oi dituan andienatakoa, txikietakoa baiño. Amar bat urte ber-berak egiña ta ipiñia.

Erriko jayak, «Santa Ana»etan oi dira aste batez. Guda aurrean geienak euskeraz egin oi eben. Orain errian euskera gutxi entzuten da, ta elizan ez da euskeraz ezer be egiten.

Aurten lenengoz, erriko jaiei, euskal usaia emon dautsee. Egitarau polit bat bietara atera dabe: alde batean euskeraz eta bestean erderaz. Santa Ana jai egunean berean, amaiketako meza nagusian, sagara ondoan txistulariek jo eben, ta jende guztiai eder-eder iduritu izan yaken.

«Abesti norgeiago» bat eraldu eben iru egunez: «Abestien leenengo olaztiar norgeiagoka». Askotxo izan zan, sariketara aurreratu ziranak. Eta sarituen artean, bilbotar bat baiño geiago. Taldeetan: «Oskorri» taldea; 18 urtetik gorako bakoitzezko abeslarietan, San Martin eta Fernando; eta 18 urtetik beeko abeslarietan Aintzane Zabala Elorduy. Ez naiz gomutetan lenengo ala bigarren mailan geratu ziranik, baiña bai beintzat ederto. Beste batzuk be sari onak irabazi ebezan, Gaztelu'koak, Altzatzu'koak, Olazti bertokoak...

27'an arratsaldean, Legazpi'ko «Alaitasuna» taldeak, Bilbo'n ain ezaguna dan Enrike Zelaia, altzatzuar auspolariagaz batera, ekiñaldi ederra emon eban.

30'ean, domekea, jaien azkena, «Umeen euskal eguna» ospatu eben, ta andikiro ospatu gero. Goizeko amarretan, etorritako umeen taldeak, plazan erriaren aurrera agertu ziran, ta ikurriñari agur egin. Ikurriña, Olazti'ko bertokoa zan, margo gorri-gorriduna, ta erdian «Olazagutia» berba bakarra eukona.

12'etan, parrokiko zinean, umeai jai bat egin eutsen. Bazkaltzerako sendietara banandu ziran, ta danak sendietan jan eben; jendeek, umeekaz oso ondo egon eta bazkari gozoak eskaiñi eutsezan. Arratsaldean, berriz, 5 ta erdietan asita 8'rak arte, ume talde guztien agerpena, dantzak eta txistularien ariketak. Bizkai'tik Markiña'koak, mutiko ta neskatoak. Birritan abestu eben, ta jendeari agur egiteko berbalditxoa neskato batek esan eban, au be euskeraz.

Gipuzkoa'tik arrasatetarrak; Naparroa'tik «Oberena» Iruña'ko taldeko dantzari txikiak, eta Lizarra'ko gaiteroak mutiko ta neskato taldeakaz. Arratsalde atsegiña igaro genduan. Goi-Ikastoletan irakasle dan Argomaniz'tar Bizente'k, iñostan: «Asteko ez da gitxi izan; ederto egon da, egon», ta euskereari emoten asi yakon bultzadatzaz iñarduan.

Nik be ori uste dot.

YURRE'TAR YULEN A. K.

Legutiano

Azkenengoz, gurartean izan genduan guda zitalean, tamalez, ospetsua egin zan erri au, Villerreal erdel izenaz, bere inguruetan izan ziran burruka odoltsuak zirala bide. Lendik be baiña, ba-eukan erri onek bere zera, bere nortasuna, Araba'ko erririk geyenakandik bardingea zalako; bear ba'da Aramaxo'ko aranaz batera oso euskalduna zalako-edo...

Aipatu dogun gudaketea baiño leen, legutianotar gitxi ziran euskeraz ez ekienak, arrotz eta onen senditarrak, atzerritik etorritako irakasleren batzuk eta abar, beste danak edo geyenak euskeraz mintzatzen ziran-ta, bertaratuten gintzazenean gogoratu be ez yakun egiten gure izkuntza baiño besterik erabilli bear genduanik, Otsandio'ko soiñutxuzko euskera txukuna erabilten eben. Aldi onetan, baiña, beste euskaldun erri askotan legez, tamalez, berakuntza andia egin dau gure izkuntzak legutianotarren artean.

Orrek eztau esan nai, ez orixe! ez dala euskerarik egiten Legutiano'n; ainbat dira bertan, batezbere adiñean goratuta aurkitzen diranen artean, jatorrizko euskeran mintzatzen diranak. Baita ba-dira euskaltzale zintzoak be, euskotarroi nortasun berezia emoten dauskun euskarak iraun dayan, bera berbiztuten kementsu diarduenak, ez dago euron izenik aipatu bearrik, AGUR'en irakurle askok ongi dakie nortzuek diran errizale zintzo orreik!

Baiña, ingurutu, arresetu lez egin dauskuez eleiz-gizon, irakasle ta beste aginbidezko atzerrizalean artean. Atzerritik Legutiano'ratutakoak maite dabela euren sorterria? ez da ori iñorentzako be obena. Erriko semealaba batzuk atzerri-zaleak dirala?, ori be ez da guretzat obena. Gizonak maite leike berak nai daben guztia, baiña, obena bai-da ta zitala izan-be, eusko seme batek bere izkuntza, bere oiturak, lage, eskubide, itz baten, bere Erria ez maitatzea atzerri-zalekeriagaitik. Eta baita obena da eta gizontasun gitxikoa, gure lurraldera etorri diranak euren sorterriaren izenean geure-geuriak diran gauzarik maitekorrenak gorrotatzea, ezetariko begirune edo errespeto barik emengo semealabantzat.

Legutianotarrak, ez kikildu, jarraitu euskera mintzatzen eta landuten, eusko ikastolak indartuten eta gure Erriaren eskubideak begiruneazoten. Kementsu eskatu berton, errian txadon nagusian dan laudiotar txaunburu euskaltzale jatorrai, beartu bear ba'da, eskubidea dogu eusko kistarrok-eta, igande ta jaiero GITXIENEZ euskerazko jaupa edo meza bat ipiñi dayen; geroago ta euskotarrago ta euskaldunago izan daiten beti izan bear eban erria, sarritan alegindu dan guztiok ezagutzen dogun Nikasi legutianotar kementsua lez.

ALTUNA'TAR JOSU

Usansolo

KILI-KILI'KOAK. — Aspertu egingo gaitue euren joan-etorriakaz, norbaitek esan lei, lerro oneik irakurkeran. Parkamena eskatuko neuskio onela uste izaten dabenari, baiña zerbait esan bearrean aurkitzen naz, gure umetxoen ibillaldiari buruz.

Kili-Kili'ren lana Usansolo'n, danok ezagutzen dozue. Naita urte bi bakarrik izan gure artean, gustiz ezagutua gure euskaldun sendietan; ainbat etxetan sartu, ta aurtxoen ikasketaren bitartez, zenbat gurasok euren euskerea landu daben!

Baiña lanak bere atsedena bear, eta ori dala-ta, bigarren ibillaldia izan dabe aurten, izeko-osabak zaindari zirala. Atsedena esan dogu, ta ez goaz esana ukatzen, baiña bere jolas itxuria galdu barik, ez dau Kili-kili'k gura, joan-etorri oneitan zerbait geiago ikasi barik etxera eldu bere adiskidetxoak, gure Erria gai dala. Orregaitik bere izeko-osaben bitartez, ibillaldi oneitan gure Erriko ondartzak, basoak eta zelaiak ezagututzen dabezanean, gure izaera zarra be erakusten jakee.

Au dala-ta, Usansolo'tik goizeko 8'retan urtenda Gernika'ra joan ziran bat batean. Eurekaz batera, Ipar-amerikatar batzuk eldu ziran, gure aretx santuaren gerizpera. Eta Kili-kili'ren laguntzaleak esaten eben lez, zenbat negar-malko, baiña une onetan, pozaren pozaz sendi arein begietan: irurogei neska-mutiltxo ikusiaz euren Erriko oitura zarrak ikasten ta len ikasitako abestiak, poliki-poliki, abestuten. Taldearen argazki batzuk nai, ta an ipiñi ziran gure Kili-kili'tarrok zugatzaren magalean, euren aurpegi alaitxuakaz, Ipar-ameriketako euskaldunak ezagutu dagiezan.

Elantxobe ta Ea'tik Lekeitio'ko Karraspio ondartzara. Uger naikoa eginda, gero, Ondarru'tik Motriko atzean itxi ta Deba'ra bazkaritan. Onen ostean Julen'en ordua: berak asmatutako jolasak, zelako azazkue artu eben gure umetxoak, eta ez gure aurtxoak bakarrik. An batu zan gizartea, Kili-kili'tarren jolasak euren biotzak alaituten, ez ziran usansolotarrak, baiña ez dabe Usansolo beingoan aiztuko, gure neska-mutillak ezagututa gero.

Eibar'tik Zornotza'ra, azkenengo txakurrak, an egozan bira-biretan eralgiteko, ta ainbat ariñen etxera loguraz beterik, baiña egun zoragarria igarota.

Eskerrik asko Kili-kili, ta zure izeko-osaberi, euren azkenengo agurra.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Arrasate

OPORKETAK.—*Barru-barruan sartuta gagoz eta ba-dabil urten bearra, batzuk berebil aundietan, eta onein artean geienak, urrutiko errietara. Millakak dira alde egin dabenak eta gure erriak beste usai bat ageri dau. Laister emen izango dira ostera be, ta joan diranak baiño geiago etortzen ez ba'dira oker gutxiago.*

Dana dala, euren erri aldeetan ondo ibilli ditezela, ta euren bizileku egin duten erri onetara ondo etorri. Beste asko or dira Lekeitio, Zarautz, Donosti, Errioxa eta Naparrua'ra joanak. Danori egonaldi zoriontsua opa dautset.

URGITXITZEA.—*Legortea izan dala-ta, etxeetarako ura egunean bein edo birritan kendu egiten izan dute. Leen Udalaitz azpitik etorrena naiko izaten genuen. Arrezkero, Korueta'n Ur-baltzakoak, Epele'koak eta beste iturburu txikiagoetan urak artu izan dira, eta orain beste aundiago bat artzen ari dira, Garagartza'ko Kobate'n. Onegaz asko ugarituko dala diñoe, ta ur ona dala. Baiña noiz arte naiko?*

ERROMA'TIK.—*Emen dogu, erbestean berrogei urtez ibillita, Kerexeta'tar Laurene, eskarnetar lekaimea. Zure erri au oso aldatuta aurkituko zendula uste dogu, aleginduko gara baiña geroago ta euskaldunago egiten.*

Emen izan dogu baita, Zaitegi'tar Jokin jauna, euskal idazle trebea ta erri onetako semea. Ongi etorria zure erri ontara, ta ea noiz ikusten ditugun zure idazti aipagarri geiago.

EZBEARRA.—*San Prudenzio auzoan, emetik urrean, «Vergaresa'ko berebil aundi batek topo egin zun beste txiki bikin, eta eriotz bi izan ditu ezbear orrek, beste lau zaurituta. Il danetatik bat, Amosarrain'dar Arantza izan da. Bergararra izanez, erri orretan eta euskal-aroan lan aundia egiña da, ta erritarrak asko maite zuten. Bere bizibideko lana emen, gure erri ontan betetzen zun, Lagun-Oro izeneko landolan. Goian Bego. Nere samin-agurra bere sendiko guztiei, batez ere bere aita dan Txomin, euskal idazle trebe ta gure erri ontako semeari.*

ERIOTZAK.—*Au izaten da tamalez nere izpar sortatik aldendu eziña. Joan dan illaren azkenengo astean bi izan ditugu; bat Uribesalgo'tar Kepa, bere 45 urtegaz, biotzeko min bategaz il da. Bestea, gure lagun eta euskaltzale zintzoa zan Abasolo'tar Alberta, 36 urtegaz, beste orrelako gaitz bategaz. Danak zituan lagun eta oso maitatua zan. Nere samin-agurra bere emazte gazte Olazabal'dar Begoña'ri, seme-alabatxo ta senide guztiei.*

Arrezkero, uste gabean au be, Bolinaga'tar Espe il da, onen senar Iñarra'tar Joseba, seme-alaba ta anai Imanol, euskaltzale zintzoari gure samin agur biotzekoena. Goian Begoz euskaldun jatorrok!

UTIKAN!—«*Behin Batean*» *eta antzeko euzkotarron aurkako lantxoak, len ere irakurria det idazle orren beste bat, eta ez naiz batere arrituten beste orlako bat orrek egitean: lengo lepotik burua, ori orrek eta ori guk, baiña gureak euskaldun.*

Gero, «LORAMENDI» zanaren neurtitzetan hacheak jartzen, lotsagarri ta neurria puzkatzen. Ausartak baiño gaiztoak dirala esan bear.

UDALAITZ

Galdakano

TXIMELARRE.—Ez dago esan bearrik, Bizkai ta Gipuzkoa'ko ainbat erritan eta auzunetan, jai ta jolas ederrak ospatuten dirala Iñaki deunaren eguna goralduten, eta erri onetan be ba-dogu auzuna bat, Tximelarre, erri-kutsuzko jai ta jolas politak, erriauzuneetan ziranik politenak bear ba'da, ospatutzen ebezena, orain urte gitxira arte.

Auzune au, bertoko auzokideena izan bear ba'eban be, aldi onetan, «Dinamita» izenagaz obeto ezagutzen dan «Union Explosivos de Ríotinto» landolarena da, baiña jai orreik bertoko auzokideak gertuten ebezan, Iñaki deunaren aurreko egunean asita.

Aurreko gabean, eta Iñaki deunaren eberdian, «Dinamita»tik bialtzen eutsezan erebatza ta beste laguntasun batzuk, baiña jayak auzokideak gertatu: eusko dantzak, txirrigularien lasterketak eta beste jolas atsegingarri asko. Orain lau bat urte baiña, bertoko ainbat auzokide, euron ustez irainduak izan ziran landolako nagusiak emon ebezan agindu batzukin, kaltegarriak ziralako-edo, ta beraz, naigabetu egin ziran, eta aldi artatik ona ez dogu jairik ikusi.

Auzokide zintzo orreik aldartea galdu dabelako-edo, geroago-ta atzerritarrago diran landolako nagusiekandik laguntza gitxiago dabelako-edo. Batera dala naiz bestera izan, auzune onetan ez dogu lenagoko alaitasunik ikusten.


Gora biotzak tximelarretarrak, ta ez itxi kikildu azoten!

INGLAND'ARA.—Igaro dogun Garillaren azkenengo igandean Inglanda'ra joan ziran, erri onetako «Andra Mari» dantza taldeko dantzari ta txistulariak. An, Dagonillaren lenengo astean ospatuko dan dantza ta erri-soiñularien leyaketan alde artutzeko.

Leyaketa orretan, Europa'ko dantza-talde ta erri-ereslari onenak izango ei-dira, baiña egiz, itxaropen andia daukogu «Andra Mari»ko neska-mutilletan, eta gorengo mailletan itxiko dabelakoan gagoz, eusko dantzen trebetasuna ta, beraz, Galdakano ta Euskalerria'ren izen ona.


Guztira, ogeita amar bat dira joan diranak. Lerro oneik argia ikusi dabeneko jakingo dogu -amabost bat egunerako joan dira-ta- zelako garaipenak ortu dabezan.

BASA-JAUN



"LARREKO"

Mediku aundi bezain euskal-idazle gaillena



Mundu guzian mediku-sendalari jaun asko ezagutzen dira medikutzaz kanpo idazle ta liburugille bezela beren buruak oso goi agertu dutenak. Gure ingurura begiratuta, euskal-alor txikian ere bereala gogora datozkigu anitz izan: Joanes Etxeberri, Etxepare, Jauregiberry, Artetxe, Zinkunegi; ta guzien gaiñetik P. Permin Irigaray «LARREKO» izan zana. Au, ildakoek besterik ez aipatuaz, gaur zorionez bizirik daudenen artean lerro luze ta ugariagoa aipa bear genuke euskal-idazle ta batera mediku-osagille diran guziak izendatu al izateko.

Erdal-Erriko idazle-medikuen artean edozeiñek oroituko ditu Huarte S. Juan, Ramón y Cajal, Marañón, Duhamel, Carrel... eta beste ainbat izen ospetsu. Onek erakusten digu osalaritza eta literatura ez dira elkarren etsai, adiskide baizik eta laguntzaille bikain.

Au ondo ikusiko dugu gure Dr. Permin Irigaray Goizueta, otsaundiko «LARREKO» izan zanaren bizitza-azterketa laburra egiñez. Azterketa ontatik ziñezko goresmena azaltzen zaigu gure «LARREKO» mediku aundi bezain euskal-idazle goitar eta gizon zuzenaren alde. Aurten aren sorterri AURITZE'n Euskaltzaindia'k omenaldia egitea erabaki dualarik pozgarri zait itzal aundiko adiskide agurgarri izan nuaren oroitzapenez barren-itza batzuek esatea arenganako nere zor ordaintzat. Eungarren urtea igaroxea da 1869'n Goi-Naparroan, jaio izan zanetik eta ez da goizegi ari buruz alik eta xeetasun geienak biltzea oraingo gazteak jakin ditzaten. Ez zaie alperrik izango.

BITAÑO-ALZOLA idazle argi ta txukunak atera berri duan bere «ATALAK» liburu aberatsean (Kuliska-Sorta Zarautz, 1972) zer-nola asko ematen dizkigu Auritze ta Irigaraitarren jatorriaz. Auen sortetxea lenago «ARGIZAILENEA» omen zeritzan. Beraz an sortua da gure P. Permin Irigaray gorago aitatutako 1869'garren urtean. Bertako nagusi eta aita izan zuana Ramon Irigaray erriko sekretario ta eskolaemaille zan garai artan. Gerora Iturralde, Campion eta orduko euskaltzaleen adiskide. Etxekoandre eta ama maitea Josefa Goizueta berez donestebetarra.

Ona emen esanak gure mutillaren gurasoak. Permin semeak gazterik utzi bear izan zuan jaioterria. Senide asko ziran eta bakoitza bere bidetik joan bearra da biziaren legea. Gure gizona ikasketa luzeak bururatu ondotik medikutza lanean abiatu zan. Bera eta Irurita erriek ez dute oriandik aztu an utzi zuan izen ona. Azkenik, Iruña'ko Hospital nagusiaren buruzagi izatera iritxi zan, bere medikutzaren koroitzat.

Beti lanean, beti ikasten orrela igo zan goiko maillara. Mediku, zirujano, gorputz sendalaritzako doai bereziak izan ba'zituan ez zan motelagoa arimak sendatzen eta espiritu gauzetan.

Orrela altxa eta azi zuan famili eder bat; ez zan gutxiago leiatu gizarte gora beeretan. Eta astia gelditu zitzaion beti bere biotzeko griña maitearentzat: euskera mintza eta idazten. Euskaltzaletasuna izan zuan kristau fedeaz gaiñera bere irrika nagusiena.

Mediku-eginkizunak uzten zioten txolartetan euskera sakontzen ari oi zan. Zenbat eta zenbat idazlan ez zituan bururatu urte ta urteetan? Ez zuan asti aundirik galdu lagun-arteko berriketa alperretan. Euskaldun xee ta arruntekin ikasten bai. Goiztar izanik jeiki ala ta egunero meza entzunaz ez zuan nai izaten elizkoikeri geiegirik...

Bai fedezko ta bai Jakituriazko arazoetan, zentzu aundiko gizona: ez batere buru-bero ta siñisbera. Euskera mintzaira erritarren iturri garbitik xurgatu zuan; eta mediku bezela beti erakusle mamitsu ta giartsu agertzen zaigu. Lastorik gabea... Aren lanak berriz irakurtzen ari natzaizute ta ez dirala batere zaartu aitortu bearrean gaude. Egiaren bizitasuna gordetzen bait dituzte. 1900-1936 bitartean aldizkari ta periodikuetan anitz idaz-lan argitaratu zituan. Esate baterako: «*Euskualduna*», «*Napartarra*», «*Euzkadi*», «*La Voz de Navarra*», «*Argia*», «*Argia'ren Egutegia*», «*Zeruko Argia*», «*Euskal Esnalea*», «*Gure Herria*», lekuko. Damurik John Bilbao gertutzen ari dan «Bibliografia jorian ez ditu guziak bilduko». Eta «*Prosistas Navarros*» (XX mendeko napar euskaldun idazlarien liburua) deritzanak urriegi kokaturik datoz «LARREKO» ugariaren lanak. P. Permin Irigaray idazle garaiak beretzat bakarrik merezi bait du liburu eder aundi ta oso bat. Auritze'ko seme argidotarrari omen egin diote jaiotetxean oroitarria ipiñiaz. Egoki dago ziñez.

Baiñan Orrega inguruko langar giroa ez da aski «LARREKO»ren balioa disdira araztеko. Egunen batez aren idazlanak argitaratuko diran ustean gaude.

Klasikotzat artu bear dugu, AXULAR, MENDIBURU, MOGEL eta joan dan gizaldietako idazleen antzera. Bidea gertutzeko urrengo batean aren zenbait lan arakatzen abiatuko gaituzu. «*Jende arteko osasungarriari*» eta Gizatasun eta zillegigoari opa zizkionetatik asita. Jakin bear bait-da «LARREKO» zanarentzat Medikutza apostolautze izan zala; eta euskaltasuna kristau gizatasun. Ots, «*Humanismoa*».

ANTONIO M.ª LABAYEN

ELKANO

Ludian gure Elkano gizona bezelakoak asko ez dira izan? bere izateri zegokionez txit buru jabe ta guztiz bulartsua.

Ludiari leenengo aldiz biratze osoaren itxas-ibillialdia osatuta (1519-1522 urteetan) etxeratu zaneko omenez, jai aundiak ospatzekoak omen dira aurten. Gero denok dakigun bezela bigarren bider Amerika ta Asia bitarteko itxaso aundian batetik bestera zijuala 1526'go urtean itxas erdian il zan.

Gure idazlari bikaiñ Joxe Artetxe (G. B.) aztu eziñak, Elkano liburuan bere ludiaren biratze osoaren gora-beerak, emeki ta gozo agertzen dizkigu.

Nolako aurpegia ta zer eratako soiña zuan, ez dakigu; ez bait'da bere argazkirik, zer erateko gizona zan jakiteko, argazki batek asko laguntzen.

Bere abizena Elkano zala ta, del Cano izango zala, naiku istillu ibilliak zituzten: ziur-aski del Cano'ren abizena erdal-kutsu geiago zuan, eta au obeto ikusten bait-zuten. Baiña Artetxe'k esaten digunez, Elkanogoena baserriko semea zan.

Laterriak Elkano'ri etzion dirurik ordaintzen; egun baten, diruaren bearrean aurkitu zan, eta Saboya'ko merkatariei eskatu ta auek, eskatutako dirua eman zioten. Baiña baldintza batekin: eak jarritako epean ordaintzekotan, bestela Elkano'k bere ontziarekin, erantzun bearko zuan. Iritxi zan eguna ta Elkano'k etzuan dirurik, orduan emandako itza beteaz, ontziarekin erantzun bear izan zuan. Ekintza au, oso zigortua zegon eta Magallanes'ekin joateko bere izena eman zuanean, barkatu zioten.

Zuloaga'k egindako marrazkiaren azpiko aldean auxe jartzen du: «Gure Sebastian del Cano olakoxea izango zela iruditzen zait». Artetxe jaunak jarraitzen du: «Julian Elorza ta Iñaki Perez Arregi jaunak Dipatazioan, diputadu izan ziran garaian, berari askotan esan oi ziotela; Zuloaga'k, Elkano marrazkiarekin egin zuana, alegia, Diputazioan aurkitzen dan Elkano'ren marrazkiaren azpiko aldean, Elkano idatzi bearrean del Cano idatzi zuala; arrotzak bultzata, eta auen estukuntzaz bearturik idatzi zuala. Baiña edozein egunetan zurda ta margo-gaiekin etorriko zala ta bear zan bezela utziko zuala; J. Sebastian del Cano ordez, J. Sebastian Elkano.

Baiña, Zuloaga jaunak agindutakoa ez omen zuan bete».

Mactan ugartean, Jorraillaren 26'an (egun gogongarria benetan) Magallanes'ek bere bizia galdu zuan eguna. Bost ontzitatik bi gelditzen ziran, «Trinidad» eta «Victoria». Timor'etik irteeran irurogei gizonek «Victoria» ontzia osatzen zuten; Sanlucar'era eltzean emezortzi gizon bakarrik ziran, eta gizon auen buru gure Elkano. Aize baltza ta egun larriak igaro zituztela, zalantzarik ez. Legorrekoak ezin-ran konturatuko noski, ezta pentsatu ere, Elkano'k eta bere lagunak igaro zituzten estutasunekin.

Elkano-goenako semea etzan azaren barreneko ostrua, erdi-erdikoa baizik. Euskaldunok itxasoari buruz maixuak izan gerala. Nork ukatu? Terranoba'ko bakallu tokiak euskaldun arraintzaleek aurkitu zituztela, danok dakigun gauza da.

Joanes Etcheberri Bidasoaz bestaldeko XVII mendeko idazle, olerkari ta teologoak, ba-du bere olerki baten, balearraintzalei eskeiñitako otoitz bat: «Jauna! Begira diezazugu printzipalki bizia».

Artetxe gure idazle maiteak bere Elkano liburuan, auxen idazten du: «Baleak erasotzen, bakallauaren arrantza-tokiak aurkitu zituztela. Au ikusirik gure Elkano'ren arrakastaregaz eziñ arritu. Batetik nai ta nai ez, gizon kementsua izan bear, burua argi, izarrak bezin argi. Beti baiño geiagotan gau osoak lorik egin gabe igaroko zituan; dana goibel, ala ta guztiz ere, egin bearrak eta baldintzak beteaz, gure Elkano iru urte luze igarota gero, etxeratu zan.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Trueba'tar Antonio III

Baiña Trueba andiaren lan eginkari ta ezaugarriena, berezigarriena batez be euskaldunentzat, lur literatur arloan Euskalerria ezagutu arazo, zabaldu ta goimailletara jaso eban bere lana izan zan. Juan E. Delmas'en esatez, «ordurarte ez zan iñor arduratu izan Euskalerriko oituretan, gizaereduetan, erritar jaietan, sendi eder-lauki ikusgarrietan. Ordurate ez eban iñork idatzi euskal-itxura bizia izan legian ipuiñik; errijakintzazko nobel-edestirik».

Izan be alantxe zan. Egia da, Trueba baiño lenago, euskotarren kondairea, ioturak, foru-legezarrak, ta batez be euren antxiñako izkuntza ederrak, atzerritarren gogoak indartsuki irabazi ebezela. Baiña iñork be ez ebazan erabilli errikoi jardungaiak idazteko, gure Trueba idazlaria arte.

Trueba'k, esan dogun lez, iturri orreitan argitasunezko itz-etorria edan eban. Gero, onek idatzitako idazlanak Europa'ko izkuntza danetara, idazlari trebeak itzuli ebezan. Lur zabaleko laterri danetako giza-aldrak irakurri al izan ebezan euren izkuntzetan. Trueba'ren ipuin bat, Euskalerriko gauza lilluragarrieri buruz, Espaiña'ko izparringi guztiak berregin-argiratu ei-eben. Euskalerritik at bizi ziran euskaldunak be, Trueba'ren liburuakaz pozez beterik, biotz eskerdun atsegiñez egozan. Ameriketan bizi ziranak, euren esker-on bizia aitortu ta adierazi gura eutsen, Aberri laztana gogoratzen eutselako. Etxe bat eskeintzeko berari, diru batzen asi ziran, baiña bere irakurle eskertsu orren gogoa bete aurretik il zan Trueba.

Bildu eben diruari, Bizkai'an batu zana gaiñekatuta, Bilbo'n Albia'ko Lorategian, Benlliure zizelkari ospetsuak landutako giza irudi ederra, gaur be an ikusten dana, jaso eutsoen. 1895'gngo Azillaren 24'an, entzute andiz, an ezarri zan. Aurreko urtean, 1894'gnean, Madril'eko Ederti Erakusketan, lan orregaitik dedu-domiñea emon eutsen Benlliure'ri.

Trueba'ren garaiko euskotarrak ain biotz-on eta eskerdun agertu ba'ziran, gaurko euskaldunok zer egin bear genduke bere omen eta entzute ona goraltzeko, gure alde ainbeste lan egin ebana eskertzeko?...

Nire ustez bere lan ederrak euskeratu, zerbait egiña dago, ta au be ber-argitaldu ta zabaldu, besteak «El libro de los Cantares», «Cuentos de color de rosa», «Cuentos populares», «Cuentos campesinos», euskeratu; ez gaitean Europa'n euskotarrok bakarrik izan gure izkuntzara itzuli barik daukaguzanak.

Gure aldiskari asteroko AGUR onek ba-daukoz ziur asko, idazlari trebeak orretarako. Euskera errikoi, garbi ta errezagaz, zati atalez, apurka, AGUR'aren orrietan agertu daitekez.

LETONA

ESTELLA'TIK EUSKERAZ

Euskeraz, bai, Jainkoari eskerrak. Orain, udara beroan, euskaldun asko ta asko joaten dira Lizarra'ra, bero ta atsedenaren billa. Beroa arkitzen dute, bai, baiña ez beti atsedena.

Euskaldun orregatik, udaran, euskera asko entzuten da Lizarra'n. Orrela, Estella'ko kale zar, zubi eder, eta antxiñako Eliza apartak, beste margo ta giroa artzen dute. Baita Ega erreka garbi gardenak ere; ta Montejurra arroak!

Bai, egiz, Euskera degu Euskal Erria'ren mami ta arnasa. Beste guzia, politika izan arren, azala besterik ez da. Ta Lizarra'ko jendea, pixkanaka-pixkanaka, oso mantzo noski, Euskeraren alde asi da jokatzen.

Ikastola bat jaio da Lizarra'n; gutxi izan arren ba-da zerbait. (Emen, utsetik asi bearra dago) ikastola ortan, 80-100 bat ume ari dira, jo ta ke, beren asabak galdu zuten izkuntza ikasten. Euskera galtzea oso da errexa... baiñan piztutzea... ori beste gauza bat da, ta oso zailla gaiñera. Beraz, lana egin bearra dago, ta nola!

Naparrak, napar nai ditugu, nola ez? Baiñan baita euskaldun ere; politikeriak alde batera utzita. Azken gudak utzi zituen griña txarrak zapaldu egin bear dira, nai ta nai ez.

Lizarra'ko euskaltzale jator ta sutsuak —gutxi dira baiñan fiñak, ixillean ta eten gabe lanean ari diranak, arrisko aundiekin gaiñera— pozik artuko dute gure laguntza. Aurrera, ba, denak alkartuta!

Ta gure itxaropen gozoak berpizteko; gure izardiak bustitzeko, Santiago bezperan, Sanjuan'go Elizan, Meza bikaiña, euskeraz... txistuarekin ta guzi. Ez al da pozgarria? Berrogei azken urte oietan, Lizarra zarrean, ez da olakorik ikusi ta bizi! Bai, ederrak dira Lizarra'ko eliz ta oroitarriak, urtez ta ixtoriz beteak, baiñan askozez ederragoa da Euskera!

Guda galdu omen gendun, baiñan izkuntza irabazten ari gera, Naparro zarrarentzat. Ez al da zoragarria?

MATXIN

AGVR

III URTEA
53 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - IRAILLA - 16

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

JAKIN AZKE

Jakitunak eta billatzailleak askatasun osoa bear dabe. Agertzen diran jakingarrien aurrean ez dago begiak izterik, ez dago aurre-asmoai jaramonik egiterik. Jakingarriak aurkitu ta onartu egin bear dira.

Eta ez da beti onelan izan eta izaten. Batzuten laterriaren aldetik, gogoratu Rusia'ko idazleak, beste batzutan erlejiño aldetik izaten dabez billatzailleak euren oztopoak, aurre-asmoak. Eleizearen aldetik, gogoratu Galileo'ren jazoerea; eleizea ta agintaritza bat egiñik, gogoratu Giordano Bruno'ren eriotzea. Eta Darwin beraren bizitzan be olako oztoporen bat agertuko jaku.

Joan dan gizaldian billaketeak eta jakituriak bear izan eban askatasun au eskatu ta lortu eben. Zar-zaleentzat jazoera au tamalgarria izan da, baiña jakitunentzat eta billatzailleentzat gauza ondo bearrezkoa.

* * *

Askatasun au lortzeko gudaketa onetan Darwin eredu dogu.

Ez zan siñistedun beroa. Ez siñiste bakoa be. Jainkoaren auzia ta geroko bizitzearena sakonegia zala, ta ori aztertzeko astirik ez ebala esaten eban. Ez ukatu, ez baieztu... ez aztertu.

Ori zala-ta, berak billaketea asi orduan ez eban aurre-asmorik, «prejuicio»rik. Agertuko ziran jakingarriai siñisteko gertu egoan. Ameriketara egin eban ostera luzean, pillatu ebazan jakingarriak eta biziaren iturburuari buruz, ezarri zituan oiñarriak.

Darwin'entzako aurrean pillatuta eukazan jakingarriak argi-argi agertzen eben ludian biziak aurrerapidea izen dauala, bizidun txikienetatik asi ta aundienetaraiño, errezenetatik asi ta nastuetaraiño.

Eta geroago bururatu jakon aurrerapide orren barruan ete egoan gizona bera be. Itaun oneri baietza emotea arriskua aundiko jokoa zan. Emen ba eben indar apur bat billaketa-biderako aurre-asmoak, Biblia'tik eta erlejiño-jakintzatik etozen aurre-asmoak. Eta batez be gizonaren gogoa, arimea, aurrerapide orren ondoren izan ledikela esateak.

Darwin asikeran bildur zan, baiña jakingarriai bear dan erantzuna emon bear eutsen eta azkenean gizona aurrerapide orren aurrenengo maillea zala esan eban.

* * *

Zelan artu eben orduko jakitunak Darwin'en irakatsi ausarti au, batez Eleiz-gizonak?


Urte askotan bere irakatsiak eleizgizonentzat gogorrak ziran. Darwin siiiste bako lez agertu zan. Baiña, gero, batez be Pio XII'agandik, bere eretxiak itzaltasun aundi bat irabazi eben. Aita Santu onek irakatsi ebana auxe da: jakitunak eta billatzailleak ori agertzen ba'dabe, ez dago Liburu Santuaren aldetik ez eta erlejiño-jakintzaren aldetik eragozpenik. Berba oneikaz billaketeari bere askatasuna emoten jako eta aurreasmo guztiak kentzen dira.

Gaur geroago ta ugariagoak dira aurrerapide au onartzen daben jakitunak.

* * *

Eta egia esan, aurrerapide au jainkozaleentzat oso ederra da. Gogoratu, esaterapo Teilhard de Chardin'en irakatsi gogoangarriak. Jainkoa izadiaren barruan dago eta aurrerapide oneri bultz egiten dautso bere azkenera, omega'ra, eroan arte. Eta gizona dan ezkero aurrerapide onen maillarik gurenena, Jainkoa batez be gizonetan dago, mundua ta gizadia batasun eder batera daroaz, maitasunean zaintzen ditu.

AGVR



Baserrian jolasaren jolasez ikasia, indartu dagigun neguan ikastolan.

IRAKASTOLAK

Aziketa, ikasketa, eziketa

Ba-dala aundi ta gelgarria gizona! Bizi izaten asten danean txikitxu da, bai; baiña bere barruko indarraz azi ta zabaltzen danean egiz da arrigarria. Naiz bere gorputzean aztertzen dogula, naiz bere gogo edo arimean beti agertzen yaku goralgarri bide zuzen eta argitsuz begiratzen dautsagunean. Gizonaren aunditasun-bide onetan gizontasun biribil eta osoa lortzeko iru gauza ditu gizonak: gorputza AZIZ sendotu, adimena IKASIZ egi-argitu eta naimena EZIZ zuzendu.

I.—**Aziketa**

Gorputzez azteko ez dogu irakasle-bearrik, azurrak berez gogortzen dira, besoak eta ankak luzetu, bularra zabaldu, oiñak sendotu; ao ta sur-bidez biriak artzen dabe bearrezko yaken aizea, biotzak eraginda odola ba-dabil zaiñak zear gora ta bera. Gorputzarekiko gaietan abererik geyenak gizona baiño azkarragoak dira; gizonak baiño lenago ikasten dabe bildotsak ibilten, txitak jaten, txoriak abestuten; bere buruak zaintzeko be gizona baiño len gertuten dira abere batzuk naiz euren adar naiz erpe naiz agiñakaz; azi be gizona baiño geyago azten dira beste abereki askotxu. Ez dago gorputzean gizonaren aunditasuna. Sakonago, barruragо ditu bere susterraiak ain gelgarri agertzen yakun gizonaren edertasuna. Ez dago AZIKETAN bere aunditasuna.

II.—**Ikasketa**

Irrintziz edo arrantzaz, abestuz edo babestuz abereak euren olde ta griñak agertuko dauskuez, baiña berorixe egiteko be ez dabe iñoiz beste bide bat asmatuko; irakurten ez dabe iñoiz ikasiko; gauza bat lortzeko bide barri ta egokiago bat edegi ta zabaltzea ez yake iñoiz bururatuko. Giltzapetu txakur bat etxeko areto zabalean, eskegi lukainka eder bat areto erdian, jarri esku-zurubia aretoaren baztertxoan. Txakurra gose da, jauzka ta zaunka dabil lukainkari begira, zaunka ta jauzka, jauzka ta zaunka, zurubira be joango da: baiña ez yako iñoiz bururatuko zurubia areto-erdira ekartzea ta zurubi-bidez lukainkea lortzea. Gizonezko batek berialaxe aurkituko leuke bide ori. Gizonak ADIMENA dauka ta adimen-bidez bideak elburuari egokituten ikasten dau. Adimena da gizona beste aberetatik berezten dauna; adimena egia aurkitu ta beretuteko da; baiña adimenak egi osoaz jabetuteko iñoren laguntza bear dau, ikastola bear dau. Ikastola barik aldi luze-luzea bearko luke egia beraganatzeko ta lortuko leukenean be uts ta oker askotxurekin beraganatuko leuke. Ikastola bear ba'dau irakaslea bear dau eta gai batzutan irakasleen Irakasle dan EGILLEA beraxe. Aor zelan, igerri barik, yatorkun begi-aurrera gure Egillea, Jaungoikoa. Jaungoikoa ikastoletan, adimena egi osoaz jabetu dedin.

III.—**Eziketa**

Gizonaren gogo ta barrua ez da adimena bakarrik, naimenak biribiltzen dau gizonaren gogo edo arima. Adimena EGIRAKO ba'da, naimena ONERAKO da. Adimena argitu egin bear da; baña gizona GIZON, egizko gizon osoa izatea nai ba'dogu, bere naimena ezi ta ONA egitera bultza bearko. Gizonez beteriko Atenas'ko zeyan Diogenes ospetsua GIZON-BILLA ebillan eguberdian argia pizturik; an egozan gizakiak ez ziran GIZON, ez euken NAIMENIK, ez egozan EZITA. Adimenak ikasketa-bidez ona ezagutzera eruango gaitu; baiña naimenak eziketa-bidez gizon oso ta egizko izatera. Onagaz jabetzeko bidean jartzen gaituan eziketea da egizko eziketea. Eziketeak ez dau Jaungoikoa gizonari lotzen, gizona lotzen dau Jaungoikoarekin. Lotze ori zuzenez egiteko, irakastoletan irakasleak ditugu, ikastoletan ikasleak. Gizontasuna zainduz, gizontasuna sendotuz, gizontasuna biribilduz NOR GARAN, ZER GARAN AUTORTZEKO eta Jaungoiko dan ALPHA *edo Asieraren eskutik Jaungoiko beraxe dan* OMEGA *edo Azkenean geure atseden betikorra artzeko. AZI, IKASI, EZI.*

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

Egiazko askatasuna, nun?

Egia, bakea, maitasuna, askatasuna... ona emen aorik-ao egunero darabilguzan itz politak. Asetu eziñeko egarria erakusten du gure gaztediak aldizkari, irrati, abestietan... baiña itz eder orreik ez dira beti zuzen erabilten.

Gure artean, azken urte oneitan, gogorkerizko jainkotxo ta «eguzki» barrien dizdirak ez dira izan makalak. Marxismoa, maoismoa ta ez dakit nik zenbat «ismo» geiago sartu jakun euskal-soiñekoz jantzirik.

Ez noa «teorizko» alperriko eztabaidan denporarik galtzera; nere ustez oba dogu auzora begira, beste errien kondairan zear edo ondorenak ikusirik zerbait ikasten ba' dogu. Orrela, ukatu eziñeko arrazoiekin jabetuko gara... ta ez txikiak!

Orain amabost bat urte, Israel artzen gendun danok eredutzat. Egia esan, askatasuna lortu arte, erri arek izan daben burrukea ez da edozeiñek obetzekoa. Ederra zan «Exodus» ixtori eleberritua, ederra israeldarren ereserkia! Gure artean, «guria da-ta guria» izeneko abestiaren bidez ezagutua. Baiña egun batetik bestera, len esandako «teoriak», Israel kapitalistatzat eta zapaltzailletzat salatu euskuen eta kito! Emengo morroiak goiko edo «azpiko» jauntxoen esana bete bear...

Oraintzu, Bangla Desh erri abertzaleak bere askatasuna lortu du. Ez da erreza izan: odol isuriketa negargarria, milloika eriotzak, etenbako gosea, osatu eziñeko gaixoak eta abar igaro ditue bengaliek, igali eder ori irabazi baiño len.

Munduko askatasunzale geienak bengalien alde izan dirala esango neuke. Ez dogu ba milla bider esan erri bakoitza bere buruaren jabe izan bear leukela? Beste alde batetik, Bangla Desh'eko erria kapitalistatzat edo burgestzat ez dot uste iñork salatuko dauanik... ala bai?

Ona emen baiña, egun batzuk dirala, ONU'ra sartu naian. Gosea kentzeko bear diran laguntzat lortzeko derrigorrezkoa zan an sartzea... baiña Txina'ren «betoa» dalata, atean geratu dira, beste urte baterako gitxienez, gosez. Ederra kontua! Amerikarragaitik imperialistak dirala esaten zarata geien egiten dauan gobernua, iñor baiño imperialistagoa! Zer ete diñoe orain, sapak luze, sabelak bete, aoa bero, inguruan daukaguzan sasi-langille maoistak? Ori ete da askatasuna? Orreik egi asegarriak? Ez dogu iñoiz gogorkerizko askatasun ipuiñik siñestu. Gure erriak len ezagutu ebazan txinpartak txikerrak izan ba'ziran, or doguz orain urrun, baiña erakusgarri, beste errieri jazoa.

Bear ba'da, laister Bangla Desh be, zapaltzailletzat salatua izango da, ez gara bapere arrituko; baltza zuria dala iruntsi bearra sarri izaten dabe sorkaldeko erri zapalkuak-eta.

Egia, maitasuna, bakea, askatasuna...

Egia nai dogu, guzurrezko asmakizun lilluragarriak baztertzeko, prailleki diran sasiraultzailleak, diran bezela agertzeko.

Maitasuna bai, ez senditartean eta erritarren arteko gorrotoa sortuko daben maitakeria.

Bakea, ez baiña kanposantuetakoa, ezta Txina'n bigarren agintari izan dan Lin Piao'ri bere antxiñako lagunak emon dautsen bakea.


Askatasuna... zer esango? Gizon zapalduaren kateak, edonun, apurtuko dituana bai; naiz kate gorriak izan, naiz kate zuriak. Erri bakoitzari zor jakon eskubide ederrak eskatzen dauana.

Zer geiago? Indarkeri gorriarentzat esan doguna, zuriarentzat be artu egizu... eta kito!

ARENAZA'TAR JOSU

"LARREKO"

Mediku aundi bezain euskal-idazle gaillena



Mundu guzian mediku-sendalari jaun asko ezagutzen dira medikutzaz kanpo idazle ta liburugille bezela beren buruak oso goi agertu dutenak. Gure ingurura begiratuta, euskal-alor txikian ere bereala gogora datozkigu anitz izan: Joanes Etxeberri, Etxepare, Jauregiberry, Artetxe, Zinkunegi; ta guzien gaiñetik P. Permin Irigaray «LARREKO» izan zana. Au, ildakoek besterik ez aipatuaz, gaur zorionez bizirik daudenen artean lerro luze ta ugariagoa aipa bear genuke euskal-idazle ta batera mediku-osagille diran guziak izendatu al izateko.

Erdal-Erriko idazle-medikuen artean edozeiñek oroituko ditu Huarte S. Juan, Ramón y Cajal, Marañón, Duhamel, Carrel... eta beste ainbat izen ospetsu. Onek erakusten digu osalaritza eta literatura ez dira elkarren etsai, adiskide baizik eta laguntzaille bikain.

Au ondo ikusiko dugu gure Dr. Permin Irigaray Goizueta, otsaundiko «LARREKO» izan zanaren bizitza-azterketa laburra egiñez. Azterketa ontatik ziñezko goresmena azaltzen zaigu gure «LARREKO» mediku aundi bezain euskal-idazle goitar eta gizon zuzenaren alde. Aurten aren sorterri AURITZE'n Euskaltzaindia'k omenaldia egitea erabaki dualarik pozgarri zait itzal aundiko adiskide agurgarri izan nuaren oroitzapenez barren-itza batzuek esatea arenganako nere zor ordaintzat. Eungarren urtea igaroxea da 1869'n Goi-Naparroan, jaio izan zanetik eta ez da goizegi ari buruz alik eta xeetasun geienak biltzea oraingo gazteak jakin ditzaten. Ez zaie alperrik izango.

BITAÑO-ALZOLA idazle argi ta txukunak atera berri duan bere «ATALAK» liburu aberatsean (Kuliska-Sorta Zarautz, 1972) zer-nola asko ematen dizkigu Auritze ta Irigaraitarren jatorriaz. Auen sortetxea lenago «ARGIZAILENEA» omen zeritzan. Beraz an sortua da gure P. Permin Irigaray gorago aitatutako 1869'garren urtean. Bertako nagusi eta aita izan zuana Ramon Irigaray erriko sekretario ta eskolaemaille zan garai artan. Gerora Iturralde, Campion eta orduko euskaltzaleen adiskide. Etxekoandre eta ama maitea Josefa Goizueta berez donestebetarra.

Ona emen esanak gure mutillaren gurasoak. Permin semeak gazterik utzi bear izan zuan jaioterria. Senide asko ziran eta bakoitza bere bidetik joan bearra da biziaren legea. Gure gizona ikasketa luzeak bururatu ondotik medikutza lanean abiatu zan. Bera eta Irurita erriek ez dute oriandik aztu an utzi zuan izen ona. Azkenik, Iruña'ko Hospital nagusiaren buruzagi izatera iritxi zan, bere medikutzaren koroitzat.

Beti lanean, beti ikasten orrela igo zan goiko maillara. Mediku, zirujano, gorputz sendalaritzako doai bereziak izan ba'zituan ez zan motelagoa arimak sendatzen eta espiritu gauzetan.

Orrela altxa eta azi zuan famili eder bat; ez zan gutxiago leiatu gizarte gora beeretan. Eta astia gelditu zitzaion beti bere biotzeko griña maitearentzat: euskera mintza eta idazten. Euskaltzaletasuna izan zuan kristau fedeaz gaiñera bere irrika nagusiena.

Mediku-eginkizunak uzten zioten txolartetan euskera sakontzen ari oi zan. Zenbat eta zenbat idazlan ez zituan bururatu urte ta urteetan? Ez zuan asti aundirik galdu lagun-arteko berriketa alperretan. Euskaldun xee ta arruntekin ikasten bai. Goiztar izanik jeiki ala ta egunero meza entzunaz ez zuan nai izaten elizkoikeri geiegirik...

Bai fedezko ta bai Jakituriazko arazoetan, zentzu aundiko gizona: ez batere buru-bero ta siñisbera. Euskera mintzaira erritarren iturri garbitik xurgatu zuan; eta mediku bezela beti erakusle mamitsu ta giartsu agertzen zaigu. Lastorik gabea... Aren lanak berriz irakurtzen ari natzaizute ta ez dirala batere zaartu aitortu bearrean gaude. Egiaren bizitasuna gordetzen bait dituzte. 1900-1936 bitartean aldizkari ta periodikuetan anitz idaz-lan argitaratu zituan. Esate baterako: «*Euskualduna*», «*Napartarra*», «*Euzkadi*», «*La Voz de Navarra*», «*Argia*», «*Argia'ren Egutegia*», «*Zeruko Argia*», «*Euskal Esnalea*», «*Gure Herria*», lekuko. Damurik John Bilbao gertutzen ari dan «Bibliografia jorian ez ditu guziak bilduko». Eta «*Prosistas Navarros*» (XX mendeko napar euskaldun idazlarien liburua) deritzanak urriegi kokaturik datoz «LARREKO» ugariaren lanak. P. Permin Irigaray idazle garaiak beretzat bakarrik merezi bait du liburu eder aundi ta oso bat. Auritze'ko seme argidotarrari omen egin diote jaiotetxean oroitarria ipiñiaz. Egoki dago ziñez.

Baiñan Orrega inguruko langar giroa ez da aski «LARREKO»ren balioa disdira araztеko. Egunen batez aren idazlanak argitaratuko diran ustean gaude.

Klasikotzat artu bear dugu, AXULAR, MENDIBURU, MOGEL eta joan dan gizaldietako idazleen antzera. Bidea gertutzeko urrengo batean aren zenbait lan arakatzen abiatuko gaituzu. «*Jende arteko osasungarriari*» eta Gizatasun eta zillegigoari opa zizkionetatik asita. Jakin bear bait-da «LARREKO» zanarentzat Medikutza apostolautze izan zala; eta euskaltasuna kristau gizatasun. Ots, «*Humanismoa*».

ANTONIO M.ª LABAYEN

ELKANO

Ludian gure Elkano gizona bezelakoak asko ez dira izan? bere izateri zegokionez txit buru jabe ta guztiz bulartsua.

Ludiari leenengo aldiz biratze osoaren itxas-ibillialdia osatuta (1519-1522 urteetan) etxeratu zaneko omenez, jai aundiak ospatzekoak omen dira aurten. Gero denok dakigun bezela bigarren bider Amerika ta Asia bitarteko itxaso aundian batetik bestera zijuala 1526'go urtean itxas erdian il zan.

Gure idazlari bikaiñ Joxe Artetxe (G. B.) aztu eziñak, Elkano liburuan bere ludiaren biratze osoaren gora-beerak, emeki ta gozo agertzen dizkigu.

Nolako aurpegia ta zer eratako soiña zuan, ez dakigu; ez bait'da bere argazkirik, zer erateko gizona zan jakiteko, argazki batek asko laguntzen.

Bere abizena Elkano zala ta, del Cano izango zala, naiku istillu ibilliak zituzten: ziur-aski del Cano'ren abizena erdal-kutsu geiago zuan, eta au obeto ikusten bait-zuten. Baiña Artetxe'k esaten digunez, Elkanogoena baserriko semea zan.

Laterriak Elkano'ri etzion dirurik ordaintzen; egun baten, diruaren bearrean aurkitu zan, eta Saboya'ko merkatariei eskatu ta auek, eskatutako dirua eman zioten. Baiña baldintza batekin: eak jarritako epean ordaintzekotan, bestela Elkano'k bere ontziarekin, erantzun bearko zuan. Iritxi zan eguna ta Elkano'k etzuan dirurik, orduan emandako itza beteaz, ontziarekin erantzun bear izan zuan. Ekintza au, oso zigortua zegon eta Magallanes'ekin joateko bere izena eman zuanean, barkatu zioten.

Zuloaga'k egindako marrazkiaren azpiko aldean auxe jartzen du: «Gure Sebastian del Cano olakoxea izango zela iruditzen zait». Artetxe jaunak jarraitzen du: «Julian Elorza ta Iñaki Perez Arregi jaunak Dipatazioan, diputadu izan ziran garaian, berari askotan esan oi ziotela; Zuloaga'k, Elkano marrazkiarekin egin zuana, alegia, Diputazioan aurkitzen dan Elkano'ren marrazkiaren azpiko aldean, Elkano idatzi bearrean del Cano idatzi zuala; arrotzak bultzata, eta auen estukuntzaz bearturik idatzi zuala. Baiña edozein egunetan zurda ta margo-gaiekin etorriko zala ta bear zan bezela utziko zuala; J. Sebastian del Cano ordez, J. Sebastian Elkano.

Baiña, Zuloaga jaunak agindutakoa ez omen zuan bete».

Mactan ugartean, Jorraillaren 26'an (egun gogongarria benetan) Magallanes'ek bere bizia galdu zuan eguna. Bost ontzitatik bi gelditzen ziran, «Trinidad» eta «Victoria». Timor'etik irteeran iruzgei gizonek «Victoria» ontzia osatzen zuten; Sanlucar'era eltzean emezortzi gizon bakarrik ziran, eta gizon auen buru gure Elkano. Aize baltza ta egun larriak igaro zituztela, zalantzarik ez. Legorrekoak etziran konturatuko noski, ezta pentsatu ere, Elkano'k eta bere lagunak igaro zituzten estutasunekin.

Elkano-goenako semea etzan azaren barreneko ostrua, erdi-erdikoa baizik. Euskaldunok itxasoari buruz maixuak izan gerala. Nork ukatu? Terranoba'ko bakallu tokiak euskaldun arraintzaleek aurkitu zituztela, danok dakigun gauza da.

Joanes Etcheberri Bidasoaz bestaldeko XVII mendeko idazle, olerkari ta teologoak, ba-du bere olerki baten, balearraintzalei eskeiñitako otoitz bat: «Jauna! Begira diezazugu printzipalki bizia».

Artetxe gure idazle maiteak bere Elkano liburuan, auxen idazten du: «Baleak erasotzen, bakallauaren arrantza-tokiak aurkitu zituztela. Au ikusirik gure Elkano'ren arrakastaregaz eziñ arritu. Batetik nai ta nai ez, gizon kementsua izan bear, burua argi, izarrak bezin argi. Beiñ baiño geiagotan gau osoak lorik egin gabe igaroko zituan; dana goibel, ala ta guztiz ere, egin bearrak eta baldintzak beteaz, gure Elkano iru urte luze igarota gero, etxeratu zan.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Trueba'tar Antonio III

Baiña Trueba andiaren lan eginkari ta ezaugarriena, berezigarriena batez be euskaldunentzat, lur literatur arloan Euskalerria ezagutu arazo, zabaldu ta goimailletara jaso eban bere lana izan zan. Juan E. Delmas'en esatez, «ordurarte ez zan iñor arduratu izan Euskalerriko oituretan, gizaereduetan, erritar jaietan, sendi eder-lauki ikusgarrietan. Ordurate ez eban iñork idatzi euskal-itxura bizia izan legian ipuiñik; errijakintzazko nobel-edestirik».

Izan be alantxe zan. Egia da, Trueba baiño lenago, euskotarren kondairea, ioturak, foru-legezarrak, ta batez be euren antxiñako izkuntza ederrak, atzerritarren gogoak indartsuki irabazi ebezela. Baiña iñork be ez ebazan erabilli errikoi jardungaiak idazteko, gure Trueba idazlaria arte.

Trueba'k, esan dogun lez, iturri orreitan argitasunezko itz-etorria edan eban. Gero, onek idatzitako idazlanak Europa'ko izkuntza danetara, idazlari trebeak itzuli ebezan. Lur zabaleko laterri danetako giza-aldrak irakurri al izan ebezan euren izkuntzetan. Trueba'ren ipuin bat, Euskalerriko gauza lilluragarrieri buruz, Españа'ko izparringi guztiak berregin-argiratu ei-eben. Euskalerritik at bizi ziran euskaldunak be, Trueba'ren liburuakaz pozez beterik, biotz eskerdun atsegiñez egozan. Ameriketan bizi ziranak, euren esker-on bizia aitortu ta adierazi gura eutsen, Aberri laztana gogoratzen eutselako. Etxe bat eskeintzeko berari, diru batzen asi ziran, baiña bere irakurle eskertsu orren gogoa bete aurretik il zan Trueba.

Bildu eben diruari, Bizkai'an batu zana gaiñekatuta, Bilbo'n Albia'ko Lorategian, Benlliure zizelkari ospetsuak landutako giza irudi ederra, gaur be an ikusten dana, jaso eutsoen. 1895'gngo Azillaren 24'an, entzute andiz, an ezarri zan. Aurreko urtean, 1894'gnean, Madril'eko Ederti Erakusketan, lan orregaitik dedu-domiñea emon eutsen Benlliure'ri.

Trueba'ren garaiko euskotarrak ain biotz-on eta eskerdun agertu ba'ziran, gaurko euskaldunok zer egin bear genduke bere omen eta entzute ona goraltzeko, gure alde ainbeste lan egin ebana eskertzeko?...

Nire ustez bere lan ederrak euskeratu, zerbait egiña dago, ta au be ber-argitaldu ta zabaldu, besteak «El libro de los Cantares», «Cuentos de color de rosa», «Cuentos populares», «Cuentos campesinos», euskeratu; ez gaitean Europa'n euskotarrok bakarrik izan gure izkuntzara itzuli barik daukaguzanak.

Gure aldiskari asteroko AGUR onek ba-daukoz ziur asko, idazlari trebeak orretarako. Euskera errikoi, garbi ta errezagaz, zati atalez, apurka, AGUR'aren orrietan agertu daitekez.

LETONA

ESTELLA'TIK EUSKERAZ

Euskeraz, bai, Jainkoari eskerrak. Orain, udara beroan, euskaldun asko ta asko joaten dira Lizarra'ra, bero ta atsedenaren billa. Beroa arkitzen dute, bai, baiña ez beti atsedena.

Euskaldun orregatik, udaran, euskera asko entzuten da Lizarra'n. Orrela, Estella'ko kale zar, zubi eder, eta antxiñako Eliza apartak, beste margo ta giroa artzen dute. Baita Ega erreka garbi gardenak ere; ta Montejurra arroak!

Bai, egiz, Euskera degu Euskal Erria'ren mami ta arnasa. Beste guzia, politika izan arren, azala besterik ez da. Ta Lizarra'ko jendea, pixkanaka-pixkanaka, oso mantzo noski, Euskeraren alde asi da jokatzen.

Ikastola bat jaio da Lizarra'n; gutxi izan arren ba-da zerbait. (Emen, utsetik asi bearra dago) ikastola ortan, 80-100 bat ume ari dira, jo ta ke, beren asabak galdu zuten izkuntza ikasten. Euskera galtzea oso da errexa... baiñan piztutzea... ori beste gauza bat da, ta oso zailla gaiñera. Beraz, lana egin bearra dago, ta nola!

Naparrak, napar nai ditugu, nola ez? Baiñan baita euskaldun ere; politikeriak alde batera utzita. Azken gudak utzi zituen griña txarrak zapaldu egin bear dira, nai ta nai ez.

Lizarra'ko euskaltzale jator ta sutsuak —gutxi dira baiñan fiñak, ixillean ta eten gabe lanean ari diranak, arrisko aundiekin gaiñera— pozik artuko dute gure laguntza. Aurrera, ba, denak alkartuta!

Ta gure itxaropen gozoak berpizteko; gure izardiak bustitzeko, Santiago bezperan, Sanjuan'go Elizan, Meza bikaiña, euskeraz... txistuarekin ta guzi. Ez al da pozgarria? Berrogei azken urte oietan, Lizarra zarrean, ez da olakorik ikusi ta bizi! Bai, ederrak dira Lizarra'ko eliz ta oroitarriak, urtez ta ixtoriz beteak, baiñan askozez ederragoa da Euskera!

Guda galdu omen gendun, baiñan izkuntza irabazten ari gera, Naparro zarrarentzat. Ez al da zoragarria?

MATXIN

AGVR

III URTEA
53 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - IRAILLA - 16

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

JAKIN AZKE

Jakitunak eta billatzailleak askatasun osoa bear dabe. Agertzen diran jakingarrien aurrean ez dago begiak izterik, ez dago aurre-asmoai jaramonik egiterik. Jakingarriak aurkitu ta onartu egin bear dira.

Eta ez da beti onelan izan eta izaten. Batzuten laterriaren aldetik, gogoratu Rusia'ko idazleak, beste batzutan erlejiño aldetik izaten dabez billatzailleak euren oztopoak, aurre-asmoak. Eleizearen aldetik, gogoratu Galileo'ren jazoerea; eleizea ta agintaritza bat egiñik, gogoratu Giordano Bruno'ren eriotzea. Eta Darwin beraren bizitzan be olako oztoporen bat agertuko jaku.

Joan dan gizaldian billaketeak eta jakituriak bear izan eban askatasun au eskatu ta lortu eben. Zar-zaleentzat jazoera au tamalgarria izan da, baiña jakitunentzat eta billatzailleentzat gauza ondo bearrezkoa.

* * *

Askatasun au lortzeko gudaketa onetan Darwin eredu dogu.

Ez zan siñistedun beroa. Ez siñiste bakoa be. Jainkoaren auzia ta geroko bizitzearena sakonegia zala, ta ori aztertzeko astirik ez ebala esaten eban. Ez ukatu, ez baieztu... ez aztertu.

Ori zala-ta, berak billaketea asi orduan ez eban aurre-asmorik, «prejuicio»rik. Agertuko ziran jakingarriai siñistesko gertu egoan. Ameriketara egin eban ostera luzean, pillatu ebazan jakingarriak eta biziaren iturburuari buruz, ezarri zituan oiñarriak.

Darwin'entzako aurrean pillatuta eukazan jakingarriak argi-argi agertzen eben ludian biziak aurrerapidea izen dauala, bizidun txikienetatik asi ta aundienetaraiño, errezenetatik asi ta nastuetaraiño.

Eta geroago bururatu jakon aurrerapide orren barruan ete egoan gizona bera be. Itaun oneri baietza emotea arriskatu aundiko jokoa zan. Emen ba eben indar apur bat billaketa-biderako aurre-asmoak, Biblia'tik eta erlejiño-jakintzatik etozen aurre-asmoak. Eta batez be gizonaren gogoa, arimea, aurrerapide orren ondoren izan ledikela esateak.

Darwin asikeran bildur zan, baiña jakingarriai bear dan erantzuna emon bear eutsen eta azkenean gizona aurrerapide orren aurrenengo maillea zala esan eban.

* * *

Zelan artu eben orduko jakitunak Darwin'en irakatsi ausarti au, batez Eleiz-gizonak?

Urte askotan bere irakatsiak eleizgizonentzat gogorrak ziran. Darwin siñiste bako lez agertu zan. Baiña, gero, batez be Pio XII'agandik, bere eretxiak itzaltasun aundi bat irabazi eben. Aita Santu onek irakatsi ebana auxe da: jakitunak eta billatzailleak ori agertzen ba'dabe, ez dago Liburu Santuaren aldetik ez eta erlejiño-jakintzaren aldetik eragozpenik. Berba oneikaz billaketeari bere askatasuna emoten jako eta aurrerapide orren aurrenengo maillea zala esan eban.

Gaur geroago ta ugariagoak dira aurrerapide au onartzen daben jakitunak.

* * *

Eta egia esan, aurrerapide au jainkozaleentzat oso ederra da. Gogoratu, esaterapo Teilhard de Chardin'en irakatsi gogoangarriak. Jainkoa izadiaren barruan dago eta aurrerapide oneri bultz egiten dautso bere azkenera, omega'ra, eroan arte. Eta gizona dan ezkero aurrerapide onen maillarik gurenena, Jainkoa batez be gizonetan dago, mundua ta gizadia batasun eder batera daroaz, maitasunean zaintzen ditu.

AGVR



Baserrian jolasaren jolasez ikasia, indartu dagigun neguan ikastolan.

IRAKASTOLAK

Aziketa, ikasketa, eziketa

Ba-dala aundi ta gelgarria gizona! Bizi izaten asten danean txikitxu da, bai; baiña bere barruko indarraz azi ta zabaltzen danean egiz da arrigarria. Naiz bere gorputzean aztertzen dogula, naiz bere gogo edo arimean beti agertzen yaku goralgarri bide zuzen eta argitsuz begiratzen dautsagunean. Gizonaren aunditasun-bide onetan gizontasun biribil eta osoa lortzeko iru gauza ditu gizonak: gorputza AZIZ sendotu, adimena IKASIZ egi-argitu eta naimena EZIZ zuzendu.

I.—**Aziketa**

Gorputzez azteko ez dogu irakasle-bearrik, azurrak berez gogortzen dira, besoak eta ankak luzetu, burarra zabaldu, oiñak sendotu; ao ta sur-bidez biriak artzen dabe bearrezko yaken aizea, biotzak eraginda odola ba-dabil zaiñak zear gora ta bera. Gorputzarekiko gaietan abererik geyenak gizona baiño azkarragoak dira; gizonak baiño lenago ikasten dabe bildotsak ibilten, txitak jaten, txoriak abestuten; bere buruak zaintzeko be gizona baiño len gertuten dira abere batzuk naiz euren adar naiz erpe naiz agiñakaz; azi be gizona baiño geyago azten dira beste abereki askotxu. Ez dago gorputzean gizonaren aunditasuna. Sakonago, barrurago ditu bere susterraiak ain gelgarri agertzen yakun gizonaren edertasuna. Ez dago AZIKETAN bere aunditasuna.

II.—**Ikasketa**

Irrintziz edo arrantzaz, abestuz edo babestuz abereak euren olde ta griñak agertuko dauskuez, baiña berorixe egiteko be ez dabe iñoiz beste bide bat asmatuko; irakurten ez dabe iñoiz ikasiko; gauza bat lortzeko bide barri ta egokiago bat edegi ta zabaltzea ez yake iñoiz bururatuko. Giltzapetu txakur bat etxeko areto zabalean, eskegi lukainka eder bat areto erdian, jarri esku-zurubia aretoaren baztertxoan. Txakurra gose da, jauzka ta zaunka dabil lukainkari begira, zaunka ta jauzka, jauzka ta zaunka, zurubira be joango da: baiña ez yako iñoiz bururatuko zurubia areto-erdira ekartzea ta zurubi-bidez lukainkea lortzea. Gizonak ADIMENA dauka ta adimen-bidez bideak elbarik aldi luze-luzea bearko luke egia beraganatzeko ta lortuko leukenean be uts ta oker askotxurekin beraganatuko leuke. Ikastola bear ba'dau irakaslea bear dau eta gai batzutan irakasleen Irakasle dan EGILLEA beraxe. Aor zelan, igerri barik, yatorkun begi-aurrera gure Egillea, Jaungoikoa. Jaungoikoa ikastoletan, adimena egi osoaz jabetu dedin.

III.—**Eziketa**

Gizonaren gogo ta barrua ez da adimena bakarrik, naimenak biribiltzen dau gizonaren gogo edo arima. Adimena EGIRAKO ba'da, naimena ONERAKO da. Adimena argitu egin bear da; baña gizona GIZON, egizko gizon osoa izatea nai ba'dogu, bere naimena ezi ta ONA egitera bultza bearko. Gizonez beteriko Atenas'ko zeyan Diogenes ospetsua GIZON-BILLA ebillan eguberdian argia pizturik; an egozan gizakiak ez ziran GIZON, ez euken NAIMENIK, ez egozan EZITA. Adimenak ikasketa-bidez ona ezgutzera eruango gaitu; baiña naimenak eziketa-bidez gizon oso ta egizko izatera. Onagaz jabetzeko bidean jartzen gaituan eziketea da egizko eziketea. Eziketeak ez dau Jaungoikoa gizonari lotzen, gizona lotzen dau Jaungoikoarekin. Lotze ori zuzenez egiteko, irakastoletan irakasleak ditugu, ikastoletan ikasleak. Gizontasuna zainduz, gizontasuna sendotuz, gizontasuna biribilduz NOR GARAN, ZER GARAN AUTORTZEKO eta Jaungoiko dan ALPHA *edo Asieraren eskutik Jaungoiko beraxe dan* OMEGA *edo Azkenean geure atseden betikorra artzeko. AZI, IKASI, EZI.*

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

Egiazko askatasuna, nun?

Egia, bakea, maitasuna, askatasuna... ona emen aorik-ao egunero darabilguzan itz politak. Asetu eziñeko egarria erakusten du gure gaztediak aldizkari, irrati, abestietan... baiña itz eder orreik ez dira beti zuzen erabilten.

Gure artean, azken urte oneitan, gogorkerizko jainkotxo ta «eguzki» barrien dizdirak ez dira izan makalak. Marxismoa, maoismoa ta ez dakit nik zenbat «ismo» geiago sartu jakun euskal-soiñekoz jantzirik.

Ez noa «teorizko» alperriko eztabaidan denporarik galtzera; nere ustez oba dogu auzora begira, beste errien kondairan zear edo ondorenak ikusirik zerbait ikasten ba' dogu. Orrela, ukatu eziñeko arrazoiekin jabetuko gara... ta ez txikiak!

Orain amabost bat urte, Israel artzen gendun danok eredutzat. Egia esan, askatasuna lortu arte, erri arek izan daben burrukea ez da edozeiñek obetzekoa. Ederra zan «Exodus» ixtori eleberritua, ederra israeldarren ereserkia! Gure artean, «guria da-ta guria» izeneko abestiaren bidez ezagutua. Baiña egun batetik bestera, len esandako «teoriak», Israel kapitalistatzat eta zapaltzailletzat salatu euskuen eta kito! Emengo morroiak goiko edo «azpiko» jauntxoen esana bete bear...

Oraintzu, Bangla Desh erri abertzaleak bere askatasuna lortu du. Ez da erreza izan: odol isuriketa negargarria, milloika eriotzak, etenbako gosea, osatu eziñeko gaixoak eta abar igaro ditue bengaliek, igali eder ori irabazi baiño len.

Munduko askatasunzale geienak bengalien alde izan dirala esango neuke. Ez dogu ba milla bider esan erri bakoitza bere buruaren jabe izan bear leukela? Beste alde batetik, Bangla Desh'eko erria kapitalistatzat edo burgestzat ez dot uste iñork salatuko dauanik... ala bai?

Ona emen baiña, egun batzuk dirala, ONU'ra sartu naian. Gosea kentzeko bear diran laguntzat lortzeko derrigorrezkoa zan an sartzea... baiña Txina'ren «betoa» dalata, atean geratu dira, beste urte baterako gitxienez, gosez. Ederra kontua! Amerikarragaitik imperialistak dirala esaten zarata geien egiten dauan gobernua, iñor baiño imperialistagoa! Zer ete diñoe orain, sapak luze, sabelak bete, aoa bero, inguruan daukaguzan sasi-langille maoistak? Ori ete da askatasuna? Orreik egi asegarriak? Ez dogu iñoiz gogorkerizko askatasun ipuiñik siñestu. Gure erriak len ezagutu ebazan txinpartak txikerrak izan ba'ziran, or doguz orain urrun, baiña erakusgarri, beste errieri jazoa.

Bear ba'da, laister Bangla Desh be, zapaltzailletzat salatua izango da, ez gara bapere arrituko; baltza zuria dala iruntsi bearra sarri izaten dabe sorkaldeko erri zapalkuak-eta.

Egia, maitasuna, bakea, askatasuna...

Egia nai dogu, guzurrezko asmakizun lilluragarriak baztertzeko, prailleki diran sasiraultzailleak, diran bezela agertzeko.

Maitasuna bai, ez senditartean eta erritarren arteko gorrotoa sortuko daben maitakeria.

Bakea, ez baiña kanposantuetakoa, ezta Txina'n bigarren agintari izan dan Lin Piao'ri bere antxiñako lagunak emon dautsen bakea.

Askatasuna... zer esango? Gizon zapalduaren kateak, edonun, apurtuko dituana bai; naiz kate gorriak izan, naiz kate zuriak. Erri bakoitzari zor jakon eskubide ederrak eskatzen dauana.

Zer geiago? Indarkeri gorriarentzat esan doguna, zuriarentzat be artu egizu... eta kito!

ARENAZA'TAR JOSU

Bost bertso ta itz batzuk

Errian betik gora,
Lengo egun batian,
Aurrak ikusi nitun
Kalia betian.
Euskeraz itz bat etzan
Guzien artian,
Naigabe bat sortu zan
Nere biotzian.

Gure aiton-amonak
Ez ba'zuten alde,
Zalantza gabe auxe
Eingo zuten galde;
Erri ontako seme
Leialak nun daude,
Emen ikusten dogunaz
Lotsaturik gaude.

O! gure Aramaixo,
Erri maiteori,
Arrotzen izkuntzera
Zaizkigu erori,
Euskaldunak gerala
Ez esan iñori,
Euskera galtzen ba'da
Alperrik da ori.

Etsaiak aurka beti
Aspaldi dabiltza,
Euskaldun asko berriz
Laguntzen gabiltza.
Aramaio len ziñan
Euskeraren giltza,
Oraiñ Arrotzen gisa
Eiten zera mintza.

Araba baztar auxe
Pozikan dagola,
Nik esango nuke
Orretan nagola,
Zorionez sortu zan
Eusko ikastola,
Biotzez maite dunak
Lagun dezaiola.

Labur xamar egingo diet nere irizpena, ez bertsoeri, baizik bertsoak esan nai duenari:

Mingarriz beterik dela, eziñ gezake uka, bertso sorta auetxen muiña. Tamalez egia delako. Aramaio'ko erri auxe urte askoetan euskeraren gorde leku izan delarik, oraingo egotaldi ontan arrotzen mende erori zaigu; baiña ba-du bertsolari onek itxaropen bat eusko ikastolarekin. Nik itz bat esango nioke nere aldetik bertsolari naigabetu oni, ongi derizkiodala eusko ikastola oien eginkizuna, baiña amaren bularretiko ikastola edo erakutsia dela nagusi, oiñarrikoa delako eta ori degu gaurko guraso askok galtzen ari zaiguna.

Euskel izenak ugari, baiña sukaldeetan arrotz mintzalari.

ARABARRAK

Zergaitik euskeraz?

Askoren eta askoren itauna: Baiña, zergaitik idazten dozu euskeraz, zergaitik? Ortik ez dozu ezelako ogibiderik; euskereagaz iñora ezin zara urten; zure erritik kanpora ezin zara ibilli... Euskaldunen artean ere ez ba'zarie aitzen... Zoratuta zagoz. Zergaitik orrela astia galdu? ta bukatu gabeko beste milla itaun eta azalpen antzekoak.

Benetan sarri erabilli dodaz nire barnean ametseta onek: itaun egokia da euskeraz itz zergaitik egiten dodan ere, baiña sail ortan iñor etzan, edo ezta sartu. Itz egitea berezia da... baiña, idatzi?

Erantzunik ezin neban aurkitu, ta billa ibil ondoren, nere barrurako Arrese Beitia'ren bertso bi naiko izan ziran: neuria zalako. Baiña naiko ete zan idazle txoratu baten erantzuna.

Nigandik ez zegoan erantzun guztiz beteturik. Origaitik amabost urte nebazalarik, naiko izaten neban Anboto'ko Señoriaren ipuin bat idazteagaz! Edo antzekoren bat! Neurea zalako! Nuerea da? Ezta erderea ere neurea, dakidan ezkero? Geiago dira erderaz ulertuko dautzuenak. Asko dira gitxiren izkuntzak zapaldu bear dirala esaten dabenak. Ba-dakigu politika geienen bidez, aberriaren zuzen bidea gidatzeko dala, baiña ezin dogu jokatu iñoiz ere bardin izkuntzetan.

Lurruna emon bear ete yake izkuntza zar edo basterrean geratu diranei? Ta zergaitik geratu dira basterrean?

PELLO

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

URRETXINDORRA

Euskeldun bertsolarietzaz itz egitean, sagardotegi ta tabernetako bertsolari izaniko «Pello Errota» eta «Txirrita» aitatu izan oi-dira, bertsolaririk ospetsuentzat bezela; baiña, aitortu bearra dago, Muxika'ko «Urretxindorra», Enbeitia'tar Kepa izan zala euskeltzalien artean Euskal-Erria'k oraindaiño guretzat izan duan bertsolaririk gogoz-koena, goratuena, maitatuena eta txalotuena.


Enbeita ez gendun Sagardotegi ta Tabernetako Bertsolaria; Euskal-Jaietarako eta euskal-itzaldietarako izan gendun bertsolaririk gozoena eta egokiena baizik.

Enbeita'k, bere kantaldi entzungarrietan, sutan jarri oi-zituan euskeldunen gogo ta biotzak, EUSKERA eta EUSKAL-ERRIA'REN MAITALE biurtuaz, illunik aurkitzen ziran euskeldunen adimenak.

Zentzuz eta mamitsu tajututako eta arrigarriro kantatutako bertsoak, izaten ziran, Enbeitia txalogarriaren bertsoak. Euskal-gaietaz Enbeita aiñako bertsolari jakitunik —gure gaurko «Basarri» alde bat utzirik— ez du izan, Euskal-Erria'k. Aren kantak, beti biozkoiak, beti zoragarriak izaten ziran EUSKERA eta EUSKALERRIA egitan maite degunontzat.

Bertsolaritzaz gaur egun geien dakian Lekuona'tar Imanol jaunak, onela zesan, bertsolariaren zoragarrizko doai bereziaz: «...bañan, neronek ere —ibilli asko egin ondoren— ez dakit noski ezertxo garbirik gai txoragarri onetaz».

Doai zoragarri ori, izaeraz gaindikoa zuan, iñork izan ba'du, Muxika'ko «Urretxindorra» zeritzan itz-neurlari ospetsuak. Eta gure esan au, egiztatzeko, ona emen, egun baten abestu zizkigun bertsoak:



Gure asaba zarren odola
daukogun arte zañetan,
agertu daigun euskeldun antza
gure arazo danetan,
EUSKERA ZARRA egarriz ito
ez dedin, legorte onetan:
Egarri ori ase daiogun,
maite ba'dogu benetan!

Itzak bakarrik, indarge dira,
EGIPENAK, ziñaldari;
nor zelako dan, bere egipenak,
erakusten dabe garbi.
Euskeldun batek, Euskalerrian,
beti ERDERAZ ba'dagi...
alperrik esan, «SOY VASCONGADO»,
erdaldun utsa da ori!

Jainkoak nai-dau mintza gaizala
bakotxa bere izkeraz:
Doitxe'n, doitxeraz, egiten dabe,
baita Prantzia'n prantzeraz.
Gaztela'n barriz, erderaz beti,
zegaitik guk, ez, EUSKERAZ?
Gure ele maite onek ezpadau:
zer ikusik bestegaz?

Ez dago emen «zuri» ez «baltzik»,
ez dago «politika»-rik:
Euskeldun danok EUSKERA-ALDE
egitia-da, bakarrik.
Ez daigun iñork ostikopetu,
Jaun Goikoa'ren gurarik...
Euskeltzaletu gaitezan, danok!
iñor be geratu barik.

Ikasi daigun «erdera», «prantses»
naiz «ingelesan» elia.
Ikaste ori, ontzat daukagu,
baiña, lenengo, GEURIA...
Izkuntza danak gurgarri dira,
aitortu nai dot EGIA:
guretzat, baiña, gurgarriena,
EUSKERA MAITAGARRIA.

Maite ditzagun guraso zarrak,
maite asaben legiak;
uri baserri, etxetxu-txuri,
zelai-buru ta mendiak.
Maite baratsak, itxaso-zabal,
ibai eta iturriak;
maite lenauko oitura onak:
DANTZA ta JOLAS GARBIAK...
Gora euskarri maitagarria!
GORA EUSKELDUN GUZTIAK!

«Pello Errota»k, naiz «Txirrita»k, bota altzuten, egundo, olako bertso garrantzitsurik? Ez, noski.

ZELETA

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

GAZTE

LETRA BERRIA

Oraintsu modan dagoan liburu batean, goiko izenburu bardiñagaz, olan diñoan olerki txiki bat irakurri dot:

Irrintzi bat entzunda
Mendi-tontorrean
etorkizuna dator
kolore gorrian.

Niri ez jat letra berri au asko atsegin izan; eta orregaitik, gure Erri'ko beste abesti ospetsu bateri, Benito Lertxundi' renari, beste letra berri bat ipiñi dautsot:

Eguzkien argia
Leiopetik sartzean,
Bizimodu barri bat
Guztion biotzean.

Kristau guztiak bilduta
Leialtasun gaztean,
Bide okerrak zuzenduta
Itxaropen berrian.

Gu izango gera
Kristo'ren ezaugarri,
Gure bizitz osoan
Beragaitik gudari,
Ezin euki bildurrarik
Bera dogu zaindari.
Pake ta maitasun utsa
Munduko gizonari.

Gauza oiek egiteko
Gizonak makalak gara,
Gauza oiek lortzeko
Ez dogu guk indarra.

Baiña Kristo gugaz dogu,
Bere indar oiñarri,
Gizonen etorkizuna
Ikusten dogu argi.

ZER DERITXAZUE?

EZKAURIATZA'TAR
XABIER

TARTEAK

Mundua iñoiz ez da izan berdiña, eta mundu ontako gizonak bere ez; ez itxuraz, ez gogoanduz. Ta ori dala ta ez dala, sortzen dira tarte asko ta tarte oneik dira gaurko gizabidea sortu dabenak.

Emen, gizabide onetan geratuta, ikusbegi txiki bat bota bear dautsot: zelango bideak ziran alde batera itxi, ta zelakoetatik jokatu bear degun aurrerantzean. Gizonen tarte oneik, norperan bururakizunak onenak dirala gogoandurik lortzen dira; ta zelan osatu geiso au? Era asko egon leikez, ta bat izan leike, norperak diñoan guztiari eutsi bearrean, apur bat lasatu, ta beste batzuen iritzi batzuk be ontzat arturik, bat egin. Au egin izan ba'gendun oiñ arte, beste txori batek abestuko eban mundu ontan.

Ez da berandu au egiteko, batez be danok jokatzen ba'dogu borondaterik onenagaz. Orra or zenbat guda dagoan gaurko egunean. Guda oiek kentzera jokatu bear dogu; zenbat mailletako gizonak dagozan lantegi baten, ta zenbat giltzapean be. Txarra egiten dabenentzat ei dira giltzape oiek, baiña txarra zeri deituten jako ba? Bururakizun bestelakoak eukiteari? Ikusten dogunez, orretarikoak dira gaurko egunean giltzapean dagozan geienak.

Ez, onela ez goaz iñora, olako tarteak ez dabe egon bear gaurko gizartean, orixe izan da gaur artean dana alperrik galdu dauana, ta txar bideetara bialtzen dabillen gatxa orixe da. Asko ta asko idatzi ta esan egiten da onetzaz, baiña zoritxarrez, orren alde jokatze ori paketsua izanik, eurak beste era batzuetara jokatzen dabe.

Beste batzuek ostera, pakearen izenean, eurak dira gudak ataratzen dabezanak, eta tarte asko dagon lekuan, geiago ataratzen alegintzen dira, euren bururakizun eta interes txotxolo batzuk jagon eziñik. Eurak dira baita, azkatasuna, bardintasuna ta orretariko itz politez aldez jokatzen dabenak, gezurkoikeriz,

Gezurkoikeri orreik dagozalako, jokatu bear dogu borondate onenagaz eta ez bestera.

LANDALUZE'TAR JOSEBA

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 18
21-15-07 urrt. **BILBAO-5**

EUSKERANTO TA ERDERANTO = H.

(edo izkuntza berri bat)

Illunabar batean, zortziak amazazpi minutu gutxiago zirela, eguzki gorri bat azaldu zan mendi gaillurrean. Eguzki gorri orren printzak, gure auzo, ballara eta errietan zabaldu ziran, berri bat adieraziaz. Berri onek auxe erakusten zun: Izkuntza berri bat sortu zela alegia. Ordu txarrean jaioa zelarik edo, nork daki, izen luze xamarra ipiñi ziotela aitortu bear degu.

Izkuntza onen jaiotza, ez da gaur goizeko albistea, ez; denbora luze xamarra igaro da, bere asmatzailleak enparantzara azaldu nai izan zutenetik. Ordu artatik onera, «metodo» bereziak ipiñi dituzte, erriari erakusteko asmoakin. Erakutsi esan det, izan ere, erriak ez du ta ezagutzen izkuntz ori. Ez bere formaz, ez zertarako jaio dan ere.

Orrela ba, gure izkuntzalari jakintsuak, alegiñak egiten zituzten eta egiten dituzte, errietako bizi-laguneri, kokotzetik sartu naiean izkuntz berria, modu batera edo bestera bearturik. Bokadillo ederra sartu digute, naiz ta ori jateko gogorik eduki ez arren.

Ortantxe dago zuen errua asmatzaille jakintsuak. Erriak ez ba-du ortarako goserik, ez eman jaten. Erriak berak eskatuko du gose arkitzen danean. Ez ditzagun nastu, zaletasun sortzea edo nai ta naiezko beartze ori. Oker zoazte. Erria, askatasun zalea izan da beti, alaxe da eta aurreratzean ere orrelakoxea izango. Gizon bakoitzari, bere barruko griñak ori eskatzen bai dio.

Aurrera jarraituaz, len esan det, denbora luze bat igaro dela izkuntz berri ori sortu zanetik. Denbora luze orreten amaika alegin egin ditut nundik ote datorren sumatu naiean, ikusirik, esate baterako, Inglaterra'n inglesez itz egiten dala, Alemania'n alemanez, Italia'n italianoz, Castilla'n erderaz, Euskalerrian, euskeraz. Eta ez dut iñor izkuntz berri onetan mintzatzen entzun. Ukrania inguruan bai ote? Orduan, argi ta garbi azaltzen da; erri batean, ama lur bakoitzean, berari dagokion izkuntza erabiltzen dala. Nik galdetzen det: Izkuntz berri onetan, eskatzen den baldintza bat, amarik gabe jaioa izatea izango ote da?

Izkuntza berri bat sortu da beraz, eta egia esateko ez gera arritzen; oraindik ikustekoak eta entzutekoak izango bai gera, amalau xelebrekeri.

Gauz bat da ordea, «invento» guztiak (begiz eta belarriz ondo gaude oraindik) ikusi eta entzutea, eta bestea «invento» guztieri jaramon egin, eta onartzea.

Izkuntza berri au sortu dutenak, jakintsuak izango direla ez dut ukatzen. Adierazi nai nuke ordea, jakintsuena dela ere okerrak zuzentzea.

RAMON ZAPIRAIN

ZURI, JUAN ANJEL

Juan Anjel Aundia,
zure abizena (etxebarria)
guretzat gunekoa.
Ekin, jarrai:
Zure euskera lenengoa!
Itun izan naz
zure aurka datozenagaz.
Zure gorputza biurtu nairik,
uste txarrez beterik,
asko dabiltz, tamalez;
baiña, gure lanen bidez,
bizitza onen ederrez
ZU
(iñoiz ere ez I,
ta gitxiago HI),
ZU
aundia aundien artean,
jarri zara gure bidean:
gidaritzat nai zaitugu,
eta ez aiztu,
zugaz gaukazuz.

Gure lanak ez dira,
ez aundiak ez txikiak,
baiña biotzez zabalak
izan nai dogu.

Ba-dago lekua
gure barrenean.
Nai bat bakarrik
da gure bidean:
zu lez langille
ta bide zuzena
eroatea bizian.

PELLO

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

KONTU KONTARI

TO ALA NO

Ondarru'n ba-dira txori-zale amorratuak eta euren artean puntarengoetarikoa AGUR'en irakurle dan gure adiskide Olea'tar Andoni. Beronek txori kontuan egin dituanak andiak dira ta iñoiz bakanak be bai. Sendi edo pamili desbardiñeko zenbat ezkontza! Txori kantari ederrik be izan dau; ospetsuak izan ziran, Irigoyen'dar Juan buru zala Artxanda-Zar'eko zelain lenengo sariak irabazi zituen TXIRRITA ta BASARRI izenekoak.

Aurtengo udabarrian, orain arte iñori bururatu ez jakona bururatu jakon: zozo eme bat birigarro arragaz alkartzea. Ta kaiola eder batean abi biguna, ooldiz betea gertu ta txori biak bertan sartu zituan. Erriko txori-zaleen artean bereala barria zabaldu zan ta jendeak makiñabat ostera bertara egin eban experimento orren barri jakin naian. Ta politena! Ikusle batek esan ebanez emetzakoa zana arra ei zan, ta bai naikoa irri ta barre batzuk egin be.

Egunak aurrera ta fruturik ez zala agertzen ikusita, lagunen esamesanak ixiltzeko, Olea'k, nunbait arkituta, zozo arrautza bat abian ipiñi eban ikusleak aoa zabalik utzirik. Baiña au zoritxarra, berak zelan ez ekiala arrautzea aldendu ez zan ba! Gurasotzat egoazan txoriak janda?

Ta jendeari zer esan asmau eziñik kezkaz beteta egoala, ain zuzen egunean bertan, bere zozoaren kontuakaz adarra jo naian korreoz bertso batzuk artu zituan, ixillekoak, iñok izenpetu barik. Ta bertsuok gure lagun naigabetua sutan ipiñi eben ta bereala idazluma eskuan arturik erantzun egokia bertsoz moldatu eban. Bertso sail biak ondoren datoz. Irakurleak ikusiko daben lez Ondarru'ko txori-zaleak txori kontuan ez dira bakarrik maixu, baita euskerazko bertsoetan be.

KAMIÑAZPI


OLEA'REN ZOZUA

Etorri lagun danok
Egin daigun parra,
Ez pentza natorrenik
Jotzera adarra.
Ume egiteko zeukan
Zozo «eme» zarra,
Olea'ri biurtu
Omen zaio «arra».

Asieran omen zun
Moko beltz-berdia
Papo nabarra eta
Zorrotza begia.
Orain kanbiatuta
Bere seiñalia,
Luma beltz, piko ori
Ta arrautza paria!

Lenengo txor-txor eta
Gero txorro-txio.
Gauzak emen ez daude
argi orraitio!
Deituta joan zaio
Lagun Serapio.
Ta arra nola leikean
Onek esan dio.

Zozo orren istori
Edo istoria
Ikusirik ain dala
Benetan tristia,
Jabeak pentsatu du
Berak idaztia.
Laster jakingo degu
Sekreto guztia!



Len zozo «eme» zana,
Orain zozo «arra».
Guk ezagutu degun
Mirari bakarra.
Noiz mamorro jaki ta
Noiz buda belarra
Pello'k ba du zugandik
ikasi bearra!

IXILLEKOK

KARRIKA-ZOZOARI

Txir-txartada batzuk

Ikaratuta bai nago
ainbat jende ikusirik,
parreak egin nai bapo,
gogoz nere bizkarretik.

Agertu izan ditut nun-nai
pare gabeko maixuak;
sortu nitula, ere bai
txori kantari kontuak.

Nola dudatu liteke,
ez dala «eme» zozoa;
bere kabia du bete
agiri dan ozkolaz?

Ba-da lagunik esana,
arrautza aren barruan,
aizea bakarrik zala
gorringo ordez sortua.

Itxura danez, oraindik
zer ikasi, lagun onok,
ba-dezute bai nigandik,
mutil gazte ta gizonok!

Gogoan euki TXIRRITA'k
Artxanda Zar'ko zelaian,
bere estarri ta birikak
utzi zitula goigoian.

Baita BASARRI'k urrengo,
abots gogor, doñu gozo,
lenengo sari urrezko
meresi izan zula oso.

Eta PARDILLO REAL'a,
Obe da ixillik egon...
Txori onen sortumena
ez daukat nik zertan emon.

Ara gizajook!, Aitu:
Zuen parre ta algarak,
laister atertuko ditu
neronen birigarroak!

Exeri ta egon lasai...
txirt eta txorrotxioak,
Serapio ta Joxemai,
nik beti artezagoak.

OLEA

TXIRRIPIZTADAK

Au zer da, ba?

Barandiaran'dar J. Mikel jaunaren idatzia aldizkari batean h*-akaz eta beste aldiakari batean ainbarik...*

Atonketak?

Idazle batzuk ez dakie oindiño, antza, euskeraz r*-az itzik asten ez danik.*

Euskaldun jatorraik beti: Erramon, Erroma ta abar.

Euskal-gogorik eza?

Zabala - Arana'ren euskerea gatxa? Oraingo idazle askok darabillen baiño errezagoa zala, gaztedikoena, Orixe aundiak esan eban.

Bai orixe!

Euskaltzaleak, abadeak?

Zenbatek ete dauke euskerazko Salmutegia eguneroko otoitzak egiteko!

Samingarria!

Abestua *ta* Martxoa *erabilteko eskatzen dauskuen euskaltzaiñen* (?) *esanak, nik neuk, ezin, ezelan be, aintzakotzat artu.*

Baserrietako atso-agure apalak ditugu, guk geuk, benetako euskaltzaiñak.

Etxekoak baztertu ta kanpokoak geuretzakotu?

Olakoxerik ez, gero!

Deskeillaz (kexaz) dabiz, asko, euren elizetan Mezak-eta erderaz egiten dituela-ta.

Erriko abadearena, ta... zeuona dozue errua.

Erosta gitxiago ta egiñen geiago!

Euskaltzain batzu lotza-edo dira euren deitura edo abizenak euskal-idazkeraz agertzen. Azkue'ren jarraitzailleak ez ete dira, ba?

Olakorik!

Belloke'ko prailleen buruzagi Iratzeder Aba jarri dabeenean, albista orrek ots aundia atera dau.

Onaindia Aba Larrea'ko buruzagi ta Akesolo Aba Markiña'ko karmeldarren buruzagi izentau dituenik be ozta-ozta jakin dogu.

Urruneko barriai gora aundia ta urrekoai etxaramen?

Txarto!

Emengo guda-aldian gazte ziran euskaltzale edo diranak-diralakoen batzui egindako itaun-erantzunak irakurri dagidazenean, auxe bururatzen yat: Baiña, gudaldian nun izan zan ez ete dautso itaundu?

Gu, geu, Araba, Gipuzko ta Bizkai'ko mendietan, iskillu ta su-artean, genbizan egun larrietan, nun ete ziran euskaltzale (?) amurratuok?

Lotzagarria!

Leenago apaltasunaren eta bide zuzenaren eredu genduzan praille batzuen aldizkarietan, edozer nabarmenkeria idatzi daiteke, h *asko artean ezarri ezkero.*

Negargarria!

Ba-dakizu, irakurle, baseko heziketa *zer dan?*

Ez?...

Itaundu, ba, Gernika'ko ikastolarako iragarkiak egin dituanari.

BALENDIN AGERRE'KO

IKUSI TA IKASIZ

Zer gauza ederragorik? Ibilli. Geldia illa da, bai, ta orregaitik udaroko egunetan eguzki billa batzuetan ta, sarri gerizpe atsegiñetara edatzen, zabaltzen gara, aize ta osasun billa eri ta errixkak ikusi ta ezagutzeko, zorioneko egarriz. Igande ta iai-aldietan or goaz au edo bestea ikertu, ikusi, ezagutzeko gogo biziz. Mendi-zaleak, mendi gaillur ta bizkarretarantza; itxaszaleak, kai ta ondartza, itxas-ertzetara. Bidean beti daurkikegu zerbait ikusgarri ta iakingarria. Arretaz, begiratu bear.

Edatu gaitezan bai, euskel-gogoz, euskeraz berba, itzegiñez. Ta ikasteko itaundu, bai kaletar ta bai baserritarrai. Itaundu mendi, lats, ibai, larre, etxeen izenak ta abar. Usterik gitxien dan tokian zerbait ikasi, zerbait iakingarriaz arkituko zarie. Esakun ederren bat, ezekizuen berbaren bat. Ta, onela, ikusi ta ikasiz gure euskerea orraztu, edertu, mamitu, sakonduko dogu, maitasunez.

Itaundu irripar ezti, begikoz, ta, benetako euskalduna danak pozik artu ta erantzungo dautzu. Dana ez da galdu oraindik. Ba-dira bai, erri euskaldun iatorrak; euskaldun irauteko alegintzen diranak. Naparroa zarra bere gaurko Aldundegiari esker ,berbiztzen ari daku, euskaldutzen, nortasunez iabetzen. Niretzat pozgarria izan da, Lesaka ezagutzea. Ango euskel giro ederra! Euskera kalean, euskera etxeetan; euskera letreruetan, arakindegi, ardotegi ta abar, orma ta ateburuetan. Ardangela bateko mostrador aurrean onela idatzirik dago: «ADIXKIDE AUNDIAKIN ORDUAK LABUR». Eredu ederra napar-erri onek damoskuna!

Beste erri bat be, ikertu dot egunokaz. Au, Gipuzkoa'ko Oiartzun, erri zabal, erri ospetsu ta aundia. Bertsolariei entzuteko gogoz bertaratu nintzan: Matxin, Lazkao-Txiki, Lizazo, Mitxelena, Xalbador ta Igarzabal. Trebetasunez leiatu ziran entzuleen pozgarri ta atsegiñez. Bertso irritsu, alai ta sakonak be, irauli ebezan, batez be, olerkari dirudin Xalbador'ek. Notintza pilla ederra batu giñan Jauregi izeneko etxearen zugatzarteko zelai gerizpetatsuan. Ezagunetan Bordari idazle entzutetsua ta Joseba Lersundi neure errenteriar adizkidea nitun aldamenean. Bertso saioa amaitu bezin laster sakabanatu giñan, bakoitza bere bidez. Agur Bordari. Agur Joseba. Joseba'k esan eustan: «I, Sabin, etorriko aiz Errenderi'ra an Fomento Cultural izeneko alkarteak errenteriar ospetsuen gomutaz ta, errigaietaz antolatu duen erakuketa ikustera?». Baietza emon neutson ta, bete, bai, baietz ori. Oiartzun'dik ateratzean, arretaz, gogoz irakurri neban ango etxe batean izki aundiz idatzirik dagon gizabidezko eredu aintzagarri au: «ETXE ONETAN SARTZEN DANA BERE ETXEAN DAGO».

Ta, emondako itza, berbia betetzeko andik iru-lau egunera Errenderi'ratu nintzan, Fonebto Cultural Alkarteak Irun txaidean daukon etxera. Areto zabal bat ta, beste iru-lau gela. Oso txukun dana, egoki, dotore, ikusgarri... Laukiak, argazkiak, oroigarriak... Ikusgai maitagarri ta negargarriak. Errenderi zarra ta gaurko Errenderi urte-aldien bidezko aldakuntzatan. Eundakaz argazki negarrezko iazokun ta alaiakaz: erriak iasan dabezan ugoldeak ta abar; gomutaki triste ta atsegiñezko argazkiak... erriko seme ospetsu irudi ta oroigarriz... Ta, aunitz idazti, erderazkoak ta euskerazkoak. Batez be, euskerazkoetara begiak zuzendu nebazan ta antxe arkitu nintzan berein euskel-idazti ta bertso paper zarrakin: Xenpelar, Saiburu, Zabaleta, Salabarria ta eztakit zenbat geiagonez.

Antxe arkitu nintzan Jauregi'tar Koldobika zanaren idazti bikañakaz: «Biozkadak» «Ipuiñak» ta, besteren batzuk. Gogora datorkit bere «Maite-Opari» olerki sarituaren bertso bikoitz au: «Eusko odola maiteki ari zaigu deika-Euskera ta Aberria olerkari deika». Beste egal, alderdi batean Errenderi'tar Aba'ren Olerkiak izeneko idaztiño begikoa ikusi neban. Ona emen bi olerkari ospetsu. Ez dodaz gorengo maillara igoko baiña txalogarri dira ta gogoz ezaguru ta aintzat artzekoak. Bide-urratzailleak ziran, gure euskera ta elertia aberastu ta iasotzen alegindu ziranak. Errenderiar Aba (Astibia'tar Erramun) gazterik il zan, Tudela'n. Tamalez olerkan onen argitaldu bako lan asko betiko galdu ziran norbaitzuen gorroto ta zabarkeriz. Beste asko Ori'tar Koldobika, Buruñurduna, Arrobi'tar Danel, Panderitar, ta, Chantelar izen-ordez lenagoko aldizkari ta izparringietan arkitzen ei-dira. Euskerea, Iaungoikoa ta Aberria dabiltz kantagai. Arrotzak, ai Ama!-Euskera darama. Il baño ordu batzuk lenago bere anatxu maitiari idatzi eutsozan bertsoakaz amaituko dot: Agur, oi! Agur Ama-Jaungoikoak narama-orri nere oroitza-zuk egin otoitza.

MUNIATEGI'TAR SABIN

MATXITXAKO

Euskalerri'ko itxas-ertzetan aurkitutea dogun itxas-lur besorik entzutetsuena MATXITXAKO da. Izen au ludi osoko itxas-gizonen artean ezagun-ezaguna ere bai da. Eta gure artean, batez ere Euskal itxorkun zaletasun bidez diñar-dogunon artean, bai dira bat baiño geyago itz onek naiko buru-auste emotea dautsoenak. Eta olantxek, batzuren ustez MATXITXAKO izena Euskerazkoa ez dalakoan dagoz, erbesteko itz nastua ete dan ere bai diñoe, eta ez dakigu zegaitik, baiña, beintzat ELEIZALDE, jaun irakaslari nagosiak, bere EUSKAL-TOKI IZENTZA'ko AGAKA-lerroetan ez dau ezarri.

Dakusgunez «ixiltza» andiko toki-izen au iñortxok ez dau arakatu, eta beti-betiko aiztu baiño len, nai nuke neure eretxi laburra agertu, artean beste jakitunagoak, irakurgai au irakurrita, zuzentasun obea ba'dakasgu eskarrak emonaz alaituko gara, baiña «gero-geroko» laga barik, bearrekoa da jarraitutea zerbait argitasun jadetsiten dogun, ainbat gizaldietan lo-zorroan dagoan itxas-ertzatako aitz-lekutik, eta era onetarako neure JAYOTERRIKO MINTZAEREA, LUR-IZATEA, EDESTI TA ASALEA eta AINTXIÑAKO LORRATZ BIDEZ, ba-litz itz au argitasunera erakartea; eta gure-artean jakintza onek erabilltea bear-bearrekoak dira, ba, erbestekeriak eta ez-jakinkeriak, Euskal-izatea bastertu eta galdu-mendira daroa, eta geure lurtoki, ur alde, aitz-leku, landa, ibar, mendi, arroak, larrak eta beste geure izateari yagokozan basterrak, milla eta millaka urtietan bizi-bizi izan direanak galdu baiño len, euroi atara eragin bear dautsegu euren izate-bizia, al-bada berbiztu, eta iñoiz ez dagiezan lurperatu.

JAYOTERRIKO MINTZAEREA

Benetan, Bermeotarron izkuntzeak zerbait berekoitasun bai-dauko, eta olantxe, bere izkuntzean, ele-eralketan, oguzkerean eta baita esakeretan, Euskerearen beste izkelgietatik, bere nortasuna dauko, eta arritutekoa da, ainbat eta ainbat gizaldietan albo-errietako erdera izkuntzakaz burruka gogorrean ibilli eta ondiñokarren bizi-bizi erabiltea gure gurasoen arnasa bero eta maitekorra.

Eta gogoraturik, ene irakurte-bidez, ele-arazoetan jardun eban gizon jakitunak diñoskuna: «...Euskereak aberastasun andiak damoskuz eta Edestiaren ixiltzak bastertuta daukazan jazoerak argituteko bearrekoa da, eta izkuntza ori sakon ezpadogu ikasten, iñoiz ez doguz jakingo gure erri-aldietako lenengo bizitzaren izate eta aurrerakuntzako bideak...» (Menéndez Pidal jaunaren Jakintza irakurgayak).

Itxas-lur beso alde au aintxiña-aintxiñatik MATXITXAKO izenagaz ezagututen dabe, baiña bai dira esaten dabenak MATZAKU eta erritar geyenak eta beste erbesteko askok jakin nairik izen onen zegaitia, MATZ-leku edo MASTI-tokia uste dabe dala, eta egiz, itz biok euren oñarri-itza izanik MATZ, edonork MATZ-LURRAK direala esango leukie, baiña ondo arakatu ezkero, ene eretxiz beste arazo astun eta arrigarri bat ulertuten damoskue.

Eta ez bakarrik izen bi onekaz ezagututen dira lur-alde oneik, aspaldiko gizaldietatik onutz, ainbat izen ezarri dautsoez, onetara: XIV eta XV eunkietan gure itxastarrak deituten eben izen onekaz MATXAKAKO, MATXAKAKU, MATXAZAKU, MATXAKU, MATZAKU, MATXITXAKO, MATXIKAO eta baita ere MATXIKU.

Dakusgunez, gure Erri-Mintzaereak itxas-lur-beso bakar oneri ainbat izen ezarri dautsoz. Zer adierazoten ete dausku izen pillokada onek? Zein ete dau lur zati onek egizko izena? Nora eroaten ete gaitue ainbat gizaldietako izen oneik? Ainbat eretxitako izen oneik zetariko «ixiltza» edo zelako jazokuneren bat nai ete dausku agertu? Lur-alde oneri eragin dayogun eta al-ba'da, bere izkeratik atara-erazo dayogun «ixiltza» arrigarri orretatik bere argitasuna, baiña onetarako jarraitu bear dogu toki-izen ikasbidietatik. (J. L., jarraituko da).

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

ALKAR-AITU TA ARTU EZIÑA

Batzuetan alkar-aitu eziñetik alkar-artu eziña sortzen, ta beste batzuetan alkar-artu eziñetik alkar-aitu eziña; Baiña egunoro ikusten dogunez, bata besteagandik sortu edo beintzat alkarren ondoan ibilten dira. Au gizonen artean betiko gatxa izan da, baiña gaur egunean egundo baiño ugariagoa. Len, bear ba'da, alkarren artean artu-emon gitxiago, alkar-ezagutzeko ereti gitxiago egoalako, eta oin barriz artu-emonen erreztasuna ugaritu dalako, alkar-aitu ezin diran talde geyago ikusten dira. Eta ori gai guztietan. Eta ondo oldoztu ezkero ez da arritzeko gauza. Alde batetik yakintza edo, oin batzuk esaten daben lez, «kultura» bideak zabalago egin dira, eta bestetik yakintza-zaleak be ugaritu. Ortik sortzen da auzi edo erabagigai bat aitatzen danean, bakotxak, eskubidea dabenez, bere eretxia agertzea, eta antxiñako esakun au egiztutea: «Burutan beste aburu». Eta ortik alkar-aitu eziña.

Alkar-aitu eziñaren zusterrak

Edonok daki asko dirala ta ezin geinkez danak aitatu. Baiña ezagunen batzuk aitatuko doguz. Tarte guztietan sartzen dan norberekeria alde batera itxita, alkar-aitu eziña, geyen bat auzi, erabagigai edo gauzeari alde guztietatik ez begiratzetik sortzen da. Esaterako etxe batek zenbat leyo dituan yakiteko alde guztietatik begiratzea naiko izango litzake. Baiña batak alde batetik begiratu ta besteak bestetik bakarrik egiten ba'dau, eztabaidea ta aitu eziña nai ta nai ez sortu bear. Beste batzuetan, itz bategaz batak gauza bat adierazo gura ba'dau eta besteak beste esangura bat emoten ba'dautso, alkar iñondik ezin artu leike. Ori da gaurko gatxa ta naste askoren zusterra. Itz bardiñak esangura ez bardiñagaz erabiltea. Olan ez da alkar-aitzerik.

Orrez gaiñera, ba-da gaur egunean alkar-aitzea galerazoten daben beste gauza bat, eta asko zabaldu dana atan be. Besteak bere eretxien alde esaten dabena entzun be ez gura izatea. Ori egiten dabenak ez dabe nai gaur ainbeste aitatzen dan «alkar-izketarik» eta beraz, alkar-aitzerik be. Izan be, alkar-aitzeko lenengo bear dana gogo ona, borondate ona da, ori barik egizko gizarterik be ezin egon leiteke-ta.

Eta ortxe dago untzea!

Gaur autu eta idazkietan aurrez dabil zar eta gazteen arteko auzia. Gazteak, ainbeste bider esan dautsoe-ta, ondiño eldu ez dan etorkizuna esku artean dabela uste dau, eta oingo guztia baztertu ta dana barriztau bear dala su ta gar aldeztuko dautsu, eta arin atan be, epebarik, bapatean lortu gura dau dana: berak azia erein, landarea asi, eta igaliak yan. Ori zarrak gura izatea, aitzekoa litzake, itxaroteko asti gitxiago dauke bizitza onetan-eta, baiña arritzekoa da etorkizuna euren euskuetan daukela uste daben gazteak ori gura izatea. Orren azalbena? Nire ustez, onexegaitik: gure arima, goaren legea «bapatekotasuna» dalako. Eta izan be gorputzik ezpageunko gauzak bapatean egingo geunkez, baiña gorputza tartean sartzen danean gogoaren bizkortasunagaz *ezin* ibilli... Gazteak, benetan «gazte» danean, indarra, eragipena ta *amesa* bereak ditu ta ondo da beti aurrera begiratzea. Bizitzak irakatsiko dautso atzera begiratzen, eta lengo barik oraingorik ez litzakela izango ta... gerokorik be ez.

Nor da gazte? Nor da zarra?

Itaun onei erantzuteko *zer* dan gazte eta *zer* dan zarra izatea yakin bear. Eta orixe ez da errez yakiten, il aurreko egunean guztiak dira zar-eta. Eta orixe da iñork ziur ez dakiana. Urteak gorputza zartuten dabe, baiña arima, gogoarentzat ez da urterik. Urtez gazte dana, gogoz zartu leiteke, eta urtez zarra dana gogoz gazte izan. Onetan XXIII Yon Aita Santua eredutzat aukeratuko geunke. Urteak gora bera benetan «gazte» agertu zan. Norbaitek itandu leike: Orduan zer da obe gazte ala zarra izatea? Orreri erantzun egokia irelandar esakun batek dautso: «*Urre zuria ta urregorria baiño obea da gazte izatea zarren buruagaz, adimenagaz, baiña askozaz obea ondiño zarra izatea gazte aroko buruagaz*». Izan be zarrak gazte izatea zer dan ba-daki, eta gazteak, zarra zer dan ez daki, eta bizitzak irakasten dabena be ez. Ortik sortzen da alkar-aitu eziña.

GAMA



Zure ibillaldietan
lasaiago izateko,
gure Bankoak danerako
eskeintzen dautsuzan
bidarien txekeak
naiz eros-txartela
dozuz egokienak.

BANCO DE BILBAO

Onek emakumeen eskubideak onartzen ditu.

Aprobado por el Banco de España.

HAYU ETA NI

Hayun au oso gizaseme iztuna det. Ostelarietakoa. Gahut **deritzan alderdiko tayeldarrak beste siñisterik ez dute. Ostelariak katolikoek baiño len agertu ziran eta berein lenbiziko siñiste ortan ditugu oraindik.**

Limui Avao'ren illeta eta eorzketak izan ondoren Hayun au ikustera ioan nintzan. Arek:

—Aita! Zuk eskuan edo besapean beti zerbait ekartzen!

—Bai! Bakarrik arkitzen naizenean andik irakurtzeko.

—Oraingoan zer dakarzu? Orri aundi-zabalak, beintzat!

—Onen izena AGUR dezu. Bilbo'n ateratzen duten asterokoa.

—Zuek euskaldunok gu aiña ba-zerate! Or gorriz ere azpi-marratu dezu zerbait.

—Hayun! Begi zorrotzak zuk! Iakitea atsegingarri izango zaizuna gorriz zantzutu det. Zuek ostelariok, tayel-izkuntza gogoz erabiltzen dezute non-nai. Bai gurketarako biltzen zeratenean ere. Eta, ain zuzen, GAMA nere adiskide aundiak IZKUNTZAREN GARRANTZIA izenez iakingarri bikain-bikaiñak azaldu dizkigu. (Ikus AGUR, 40'garren zenbakian).

—Izparringia noizkoa dezu?

—1972'garren urteko orrillaren 27'garrenekoa. Itxasoz etortzen zaidala onera orduko ia zartu egiten dala esan liteke. Neretzat, ordea, gaur goizekoa ba'litz bezelaxe izan.

—Nik gurasoengandik ikasia aintzakotzat det beti.

—Orixe bera dio GAMA'k. Eta arek dionaren geigarria ezin azturikoa da neretzat. Ezik, agian zuk ez dezula ainbestean ulertuko.

—Zuk tayelkera garbian esaten didazuna gogoan artuko det.


—Aspaldiko zertxoa dezu: 1918'garren urtekoa. Udazken artan sukar gaiztoa zabaldu zitzaigun eta asko iltzen ziran. Nere osaba bat ere bai, orduantxe il zan. Ontan, Donostia'n bizi zan Aita AIZPURUA iesulagun urrestildarra; eta, gaixorik zeudenen aitorkuntzak entzutera ioaten zan: alegia, gaixoaren etxekoek deituta. Beti ez bide zitzaion lan errexa. Asko eta asko urteetan beren utsegiteak aitortzera agertu gabeak izaten.

Gaxoaren aldamenera urbildu aurretik, zer nolako kistarra zan galdetzen zuan. Izan ere ain otsaundiko Aita AIZPURUA'ri iauntxoak eta aundizkiak deitzen zioten batez ere. Eta, euskaldunontzat lotsagarri dana, garai artan aundizkiek eta aberatsek erdera-maite genituan. Ala ere Aita AIZPURUA ez zan estutzen eta etxekoei galdetzen zien:

—Gaixo dagon zaldun aundia euskalduna al da?

—Gaztetan euskaldun utsa izana.

—Ongi da! Eta, zuzen gaixoaren oeburura ioaten zan. Bein ere utsik egin gabe gaixoari euskeraz asten zitzaion. Ain eztiki. Alaxe zan AIZPURUA Aitaren izkera! Eta, gero bere eginkizuna bukatzen zuanean, etxekoei zorionak ematen



zizkien eta ezeren beldur ez zitezela izan esanez bere etxera itzultzen zan.

—Zu, Aita! Asko ikusi eta ikasia zaitugu!

—Zer egiten zuan eta zer ibiltzen zan Aita Aizpurua'k berak esan zigun geroago, Itxaso'n Sortzez Garbiko Iaikizun aurrez iru eguneko itzaldiak izan zituanean. Ni orduan apaiz gazte nintzan, eta otordurakoan Aita Aizpurua bera eten gabe aritzen zitzaigun esan eta esan. Izketa auek 1927'garrenekoak dira.

—Ni alde batera arritu egin izan naiz, zuk gure tayel izkera ain poliki ikasi dezulako. Gaztetan alako ikasbideak izana ba'zaitut, orain zure iarduna ulergarrigo zait.

—Alajaiña! Zuek ostelariok ere ez didazute gutxi erakutsi!

—Guk zer onik degu zuk guregandik ikasi dezazun?

—Bein artutako siñismenari iñork aiñean eusten diozutela. Ostelari-taldekoak ortan iaioak zerate!

—Eskarrikasko!

—Ondoren, berriz, irratiz ere ariketak ba-dituzute. Gu katoliko omen geranok orretara ezin iritxirik gabiltza. Txanponak nondik sortzen dituzute?

—Txanpon asko izatea ezertarako ez genduke, aiek txautzeko gogorik eta garrik ez ba'gendu. Entzuleak gutxi ditugula geiegi dakigu. Baiñan, tayeldar ostelariek arro agertu ditezke izaro ontan olako lanak egiteko aitzakirik ateratzen ez degulako.

—Euskalerrirako zu sermolari bikaiña izango ziñake!

—Emen bertan ere egia garbi eta zeatz esan bearra obeto izaten degu!

ETXEBERRIA'TAR P. S. I.

BAI ALA EZ...

Emen, jarri dodan idazpuruak argitasuna bear dau. Jaungoikoa ta uzkurtza —bai ala ez— da gorabera. Arazo au, berez da sakona ta arduratsua. Gorabera au, sakon sakon, sartzen da gure barruan, ta beronen bidez asko ta asko betiko zoriontasun billa doaz; beste askok ostera gizonaren jauberik ez dabe onartzen ta gizonen arduraz bakarrik, konpondu nai ditue lurreko arazoak.

Era onetan ba, Jaungoikoaren aldezkoak eta aurkakoak, indar bi agiri dira, argi, lurraren gaiñean. Jesus'ek esan ebana: «nigaz ez dagoana, nire aurka dago», garbi, betetu da. Jesus'ekin, egiz, doanak, kurutzea ta maitasuna izan bear ditu bere ezaugarri. Onek biok agertzen diran tokian, Jaungoikoa dago gizartean.

Euskal-errian jende askok aspaldiko menderen mendetan Jainko bakarra siñistu ta maitatu eben ta beragaz batean emengo bizitza egin nai izan dabe. Gizon zurrarena dala deritxot, norbera baiño jakitunago dan gizonari, egizko jakituriz diñoana entzun eta ontzat artzea. Ta jakiturien jakituriak itzaren bidez bere argia zabaltzen dauskunean, eguzkiaren aurrean jarri ta bere egia ta berotasuna artzea bezela da.

Gure arbasoak, era onetan, artu eben Jaungoikoaren argia. Ta Euskalerri bezela kurutzea euren gain izan eben. Baiña egiaren jarraitzailleak kurutzea ta maitasuna ditu bere ezaugarri, ta gure erriari adiskide bi onek, iñoz ez dautse utsik emon. Euskaldunen maitasun ale bat begien aurrera ekarri nai neuke, naita beste era askotara maitasuna agertzen dakian-arren gizonak.

Euskaldun jendea, itxasoak zear, urriñetako lurraldetara joan zan, jakituriz ta maitasunez ta eskubidez erriak askatzera, nire auzokide Simon Bolibar bezela. Orduan Jainkoaren izenean arek eta beretarrak artu eben kurutza aundi ori erri baten alde. Gaur guztiak ontzat artzen dabe gure erritarrak egin eban bear mesedegarria ta bidezkao.

Baiña onen inguruan beste euskaldun seme-alaba asko izan dira mundurik mundu, bazterrik bazter, itxasoz ta leggorrez, zabaldu direnak, gizadiari argi ta on egiten. Euskalduna zabalkorra ta ongille izan dogu. Kristo'ren kurutzeagaz lurraren bost egalak jorratu ditu. Ez zrriak zapaltzen, Jaungoikoarenak dira guztiak-eta; bai euskaldunak eta bai bietnandarrak Barriotxoa'tar Balendin martiriagaz batera. Lur alde aretan bere odola ixuri eban Berriotxoa'k maitasun uts utsean ezpataren azpian. Aren odola, ta gaur, bertako semeen odolak alkartu dira lur bardiñean.

Kristo bere eskubidez sartu zan, maitasunez, euskaldunen lur eta biotzetan. Zor aundi bat dautsagula Jainkoari deritxot, gizaldia salbetako deia, argia, maitasuna ta garra emon dautsozolako gure erri oneri.

Ta gaur —bai ala ez— Kristo'gaz ala bere aurka, galdezka nator. Euskaldunak, au entzun bear...! Baiña ez da arritzekoa. Lenengo Maisuak esan eban: «zuen belarriak entzun gura dabena, koipekeriz, esaten etorriko jatzuez». Bigarren maisuak esan eban: «nire erriak Jaungoikoa ukatzen ba'dau, nik erria ukatuko dot».

Esate oneen aldietan bizi garala dirudi. Edonundik eta edozein agertzen da, irrika, Jaungoikoaren izena entzukeran. Egia da, gure artean beintzat, berarizko maisuak izan dira Jaungoiko-ezaren bideak irakasten ibilli direnak.

Orain, arazo bat sortzen jat neure barruan gure erriari begira. Koipekeriz erriari siñismena galduerazoteko eskubiderik ba'al dago? Eleiz gauz ta inguruekaz baliatuten dira, eleizagandik banatzeko bear ori egiteko. «Internazionala» izan bear dala ta gauza aundiak, itxura baten ederrak direnak, baiña egi osoa ez direnak esaten etorriko jatzuez. Kontuz! Ardiak ez direnak, ardiz jantzita, lotsa barik, edonoz ta nun-nai agertzen dira. Gauza aundiak eta protestak ugari, ta norberak ukatzen dabillenaren itxurak artu ta erria atzipetuteko eskubiderik ba'al da gizonen artean?

SOLOZABAL'TAR PAULIN

GAZTEEN JOKAERA

Antxiñanik, Igorre'ko gazteen artean gauza bi ikusten nebazan, nire ustez, gazte batentzako ederrenak direanak: Batasuna ta gaztetasuna (ez gaztekeria). Leen be bakoitzak bere problemak eukiko euazala uste dot, baiña orreik, danon artean, alboan itxi ta aurrerantza joaten ziran: futbol zelaira joan bear zala, ara joaten ziran; mendira joan bear zala, danak pozik joaten ziran euren merindakaz; erromerietara be danok bat eginda joaten ziran.

Orain ikusi dagigun ze diferentzi dagoen lengo ta oraingo gazteen artean: Lenengo, ez gagoz batuta, bakoitza bere estarta ta bidetxuetatik joaten gara; mozkorrak be bakoitzak bere kontura artzen doguz. Mendira urtean bein joaten gara; «Urriñ iak, kontxo! Larregi ez kantzetako, biotzak krak egingo iok-eta, bildurre eukitea batzuetan ona dok».

Oraingo gazteak iru taldetan ataltzen gara: Futbol-ardurea daroanak; BETI-BIZKOR. Eleiztaldean buru egiten dabenak, eta irugarrena, talde bi orreik taberna mostradoretan ardao ontzi baten aurrean kritikatzen doguzanok.

Ori pobrea da, olan gauzak ez dira egiten; ori arpegira aurrea emoteko bildurra daukanak egiten dabe. Gazteak, ikusten dogu nora ta zelan goazen? Itxartu gaitezen!

Gure bizimoduko une eder au olan galtzeak pena emoten dau. Gazteak! gure faltak autortu gure kontzientzi aurrean, ta antxiñako lez, goazen aurrera, mundua ez da mozkor eta txikitoakaz arreglatzen.

IGORRE'KO IRRINTZI

SAN MIGUEL

Euskal idazti ta eresmitzak. Gaur, atzo ta beti-betiko Euskal-gaiak bakarrik eskeintzen dituan etxe bakarra.

Nere aldetik ezertara beartu gabe, zuen euskal-jakintza arloko bilduman dituzuen idazlanen berri jakin nai nuke,

Izenpena:

.....

Izena: .....

Abizenak: .....

Bizi-bidea: .....

Urrutizkiñak:

Lantegian: ..... *Etxean* .....

Zuzenbidea: .....

Erria: ..... *Erkia:* .....

Alameda de Urquijo, 60, 5.º, izq., Bilbao, 11'en degun gure lantokira bialdu arren zerzelada onek.

Martín Aldazabal

TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI

GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Ondarroa

ANDRA-MARI EGUNA.—*Ondarru'ko Andra-Mari jaiak ba-dauke euren aparteko gatza ta berebiziko jatortasuna. Bai, orixe, batez be, ondarrutarrak euren jaiak gogotsu ta amurruagaz egiten dituezalako.*

Jai guztien sustrai ta oiñarria Antigua'ko Amabirjiña da: ondarrutarren Ama ta zaindaria.

Ain xuxen be. ondarrutarrak izugarrizko maitasun eta oneraspena dautse Antigua'ko Amabirjiñari: Goiko-kale ta kanposantu-bideko arriak berba egingo ba'lebe... esango leukie bai, zenbat eta zenbat ondarrutar Antiure joaten dan euren pozak eta kezkak Amari agertzera; eskerrak emotera ta eskerrak eskatzera; zenbat ama euren umetxoak Amari erakustera ta itxasoan arraintzan dabillan aitatxoren alde erregu egitera... Otoitz egin, negar egin, kandelatxo bat biztu, biotza nasaitu ta barriro etxera eguneroko zeregiñetara. Zenbat olako ta zenbat bidar, ondarrutar jatorreri galdetu.

Aurten be, ondarrutarrak eurrez agertu dabe Antigua'ko Amaganako maitetasuna. Ikustekoa izan zan Antigua'n Andra-Mari egunean, meza nagusirako batu zan jendetza izugarria. Urte asko-askotan olakorik ez da ikusi. Eleizea gaiñezka egoan jentez: aundi ta txiki, zaar eta gazte, baiña, batez be arraintzaleak, ainbeste itxaso urratzen ibillitako gure arraintzale jatorrak. Ondarrutar bost abadek alkar-meza egin eben. Koruak zoragarri lagundu euskun, batez be, «Ama, entzuizu» kantaten asi zanean, arnasarik be ez artzeko lakoxe ixil-unea egin zan. Erriak beti lez benetan ederto abestu eban, baiña nik uste dot Antigua'n sekula baiño biotz geiago ipiñi ebala ta, batez be, «Antigua'ko Ama maitea» eta «Ondarrutarrak, goazen kantari», erriak abestu zituanean... teillatu be altza egin biar ebela pentsa neban. Ni, argi-indarrak ikututa lez, dar-dar nengoan, eta eztarria be sarri-sarri kora pillotu egiten jatan.

Ain eleizkizun ederra ikusirik, askorek negar egiten eben, bai, negar eta gozatsu egin be, itxas baltzetan gogortutako gizon aundiak izanarren. Izan be, gure arraintzale fededunak olakoxiak dira: zintzoak, biotz bigunak, gizon on-onak benetan.

ELEIZ-IKASTOLA EGUNA.—*Andra-Mari egun zoragarri onetan geure Eleiz-ikastola eguna egin genduan. Zergaitik eta zertarako dan Eleiz-ikastola egun au, aurrerako domekan iragarri gendun Eleizan. Ikastolako diru garbitasun guztiak eleizako ateetan agertu genduzan. Diru gora-beran, oraiñartean, beintzat, gure kristau-erri onari eskerrak, ez dogu euki ez «deficit» ez «lumero gorririk». Baiña aurten, 250 ume inguru ta 7 andereiño eukiko doguzan ezkero, barriro be laguntasuna eskatu biarrean aurkitu gara. Ta bai lagundu be, gero, gure kristau komunidadeak: EUN MILLA pezeta (100.000) pezeta) batu ziran. Bagenkigun jenteak diru asko emongo ebana, bai, baiña ainbesterik ez gendun uste... geu be ikaratuta geratu giñan. Izan be, diru ori diru asko da olako erri tixki batek emoteko-ta. Gaiñera, diru kontatzailleak esan ebenez, «berde» gitxi egon ei-zan eta «eunekoak», ostera, ugari. Orrek esan nai dau jenteak dirua parra-parra bota ebala. Milla esker.*

Aurretiz, gure ikastolako lagun biren tartean apostu txiki bat be izan da: Lore Anakabe'k langosta bat jokatu eutsan Joxe Anjel Anakabe'ri irurogetamar milla peseta baietz batu. Jakiña, langosta ori Lore'k irabazi dau, baiña ba-dakit Joxe Anjel be poz-pozik dagoena zorra ordaintzeko. On-egin, zeuen laguntasunagaitik merezi dozue-ta.

Geu abadeok be poz-pozik gagoz. Guretzako Eleiz-ikastola Eguneko laguntasuna «referendum» txiki bat izan da: or ikusi dogu lagun asko daukaguzala errian eta gero ta geiago. Eskerrik asko, ostera be.


J. GARITAONANDIA

Galdakano

JAYETAN.—Gure lan onek argia ikusiko dauaneko, Gurutze Deuna'ren Jasokundea dala-ta, errian izaten doguzan urteroko jai nagusietan sartuta aurkituko gara. Lerro oneik idaztean, Dagonillaren azkenengo egunetan, ez dakigu zelango jayak izango doguzan, ez dogulako oraindik egitaraurik ikusi, baiña balitzake aurrekoen antzekoak izatea, eralduten dabezanak lengoak edo tartekoak diralako. Ori ta guzti be, eusko-giroko jai ta jolas bikaiñak izango ei doguz Udalak berak antolatuta, egia ete?

Erriko jayak, edonon, erriko gazteak antolatu bear leukeez, adiñekoen argibideak lagun dabezala, gazteak izango diralako, geyen bat, jai orreikaz jolastuko diranak. Baitá, ziurki, erritar geyenen guraria be, oneik atsegin dabezan jayak eralduko leukeezalako, errian geyago zustraituta dagozanak, eta ez, aspaldiko urteetan lez, gitxien batzuk euren nayean dabenak, geyeneri iruntziazoten lez gertatuak.

Aurten, barriz, jai antolatzailleak gaztetaldeak gertatuteko agindu dabe, ta orreik sarituteko ainbat txindi ei-dau Udalak. Ez lizake txarto izango, talde orreik oituraz, gizonkiro, jantzi egokiz apainduta ta alaitasun garbi benetakoan ikustea. Baiña ez dogu uste erreza izango danik, batetik iñoiz ez dalako emen izan oitura ori lenago, ta bestetik, iñoiz baiño banatuago aurkitzen dalako emengo gaztedia, atzerritik sartu yakuzan ekandu ta gogai loyen bidez.



Galdakaotarrai ta AGUR'en irakurle guztiai, Iraillaren 14'gnean eta aurreko egunean asita ospatuko diran jai alai zoriontsuak opa dautsuez, lerro oneik zeuroi eskeintzen dautsuezan onek.

ANDRA-MARI.—Aurreko idazlan baten iragarri genduan lez, «Andra-Mari» dantza taldeak txango garratzitsu bat Frantzi ta Ingland aldetik egin barri dabe, eta azkenengo orretan ospatu zan leyaketan alde artu. Garaitza polita lortu eben, 5'gna, Europa'ko ogeita amabost talde onenetarikoen artean. Baiña eurok ez dagoz pozik, garaitza aundiagoa merezi ebela uste dabe-ta. Tira neskamutillak! Ez orregaitik aspertu, urrengoan izango dozue zori obea-ta.

Bide batez, Frantzi'n be ainbat tokitan dantzatu eben, garaipenik andienak lortuaz. Gure zorionak AGUR'en bitartez eta jarraitu orretara.

BASA-JAUN

Arratia

Beroaren beroz ito baiñik eta miña aterata, geiago eziñean, jakeak besapean ebezala ikusi izan doguz, lengo egun batez, Dobaran Sabin eta Zuazo P. Artaun'goa. Beraz, udaldiaren biotz-biotzean bizi gara, arrautzopil-aro egokiena oraingoxea, bide-ertzetan narru-zatiak itzi, ondartzetan azala baltzizkatu naiz mendirako egun aukeratuak oraingoxe oneik. Nirealako soin nagi-astunak, ostera, etxeko giroa maiteago; epe astitsu ta txorlarteetarako barriz, irakurgaiak dodaz lagunik kutunenak.

Irakurritarikoren artean don Felipe Jauntxo Saltsitas Aundigure'k, illak eta biziak astinduz egin izan dauan lanaren ikutu zerbatzuk ikusi izan dodaz eta, neure eretxia agertu-bearrez, eta nire ustez, idazkur zikiña «ENPLEGATU» dauala esan-bearra dot.

* * *

Beraren eretxi arroz gorengo maillan gorengo POETA danaren poesiak Hatxeai esker, «elegantziarik elegantemenean» egiñak, mamiz uts eta putz.

Zikin-oxiñetan aurkitu ta jaso izan dodazan txorta bat edo beste nai dozuela «euskeranto irternacionalitatuan»? Emen dozuez, ba, baiña, gogoan izan gero! jan zaarrean irakurtekoak dirala.

«Estudio diskutigarri bat presentatu izan da examinetara kritika manerismoa jotzen dula». «Fierki zedatutako frogantza frogatuan gatibatatua». «Literatura libroa pasatzearen prozesa nonbratuan flakezazko kualitatea».

«Ez dakit eta ezin dot», alperkeriaren aita ta ama dira. Guztiok gara zerbait egiteko al.

Aspaldi aundirik ez dala, ALPRO deritxon itxasontzian mundurik mundu dabiltzan Koldo Goitia ta Yon lekeitiarrekaz alkar ezagutzea izan neban. Lekeitiar eusko seme zintzo oneik AGUR onen adizkide egin dira eta, itxas kresaltsuaren bizkarrean kulunka ta sabuka egin, gogotsu irakurri eta Alemani'ko Hanburgo'ra iritxi edo elduten diranean, an diran euskaldunei emoten dautsee. AGUR au, ba, itxastarra be ba da, errimiñez bizi diranen pozgarria eta Koldo ta Yon'en bide laguna.

Agur, ba, Koldo, agur, Yon; agur ira kurle, beste bat arte.

LANDAJUELA'TAR A.

Arrasate

JAIOTZA.—*Gure lagun eta euskaltzale zintzuak diran, Bergaretxe'tar Bitor eta bere emaste Leibar'dar Inese'k, semetxo bat izan dute. Bataiatzerakoan, Asier euskal-izen polita esarri dautsie. Zorionak, Bitor eta Inese maiteok eta zeuen mutikotxo Asier ori, uste dut aziko duzuela zeuk aiña kistar eta euzkotar izatea lortu arte.*

ERIOTZA.—*Beste bat geiago eta au da bosgarrena 20 egunen barruan bat-baterako eriotza izan duna erri ontan. Oraingo au gazte euskaltzale izan zan Aranguren eta Gallastegi'tar Gotzon izan da, bere 26 urtegaz. Goian Bego. Atsekabean laguntzen dautsat bere guraso naigabetuak diran Yosu eta Yosebe'ri, eta irakurleei otoi bat eskatzen dautsuet Gotzon'en anima alde.*

SANKRISTOBAL.—*Izen onekin baselizatxo bat dago emetik urrean eta leku egoki polit batean. Bere ingurutik, gure Arrasate au, oso bertan artzen da eta andik erri guztia iñundik baiño obetuago ikusten da eta bere inguruan egonleku politak dagoz. Urte batzuk onuntz oso bastertua dago baiña orain konpontzen ari dira, eskerrak Montorron'go Kondea'ri lagundu, eta beste langille batek, bertan aurrerantzian biziko danak, lan eginda. Ermita ori errian entzuteko aundikoa izan da beti. Tontor ortatik urrutira ikusten da eta ekaitz edo orrelakoen bat ikusten ba'da an dagon ezkil edo kanpaitxua jo egiten zan, orrela erriko biztanleei adierazi egiñaz. Olaxe bardin, errian sua edo izaten danian eta bardin eskiltxo orren soiñuaz jakiñean jartzen zituan goizeko, eguerdiko eta arratsaldeko otoiorduak ere, Diñoenez aurretantzian be jarraituko ei dabe oitura zar ta eder oneik.*

ZELAN IGARRI?—*Emen inguruko erri batetik ba-da idazle bat aldizkari baten idazten duana eta izenordetzaz erabilten du: «Tomasek». Nork igarri izenorde ori emakume edo gizakumearena danik? Beste era onetara idatziko balitz, esatebaterako; emakumea ba'da «Tomase'k eta bestalde gizakumea ba'da «Tomas'ek, orduan jakingo genuke ziur zetarakoa dan Gero jakin dut idazle ori emakumea da-la eta gaiñera andereiñoa.*

UDALAITZ

Bermio

AGUR'en eta 41'gngo zenbakian irakurriaz gogoratu jat zerbait idaztea. «Arraintza Arazoak» asieran diñosku: «Legatz zaleak bai dute beren Kala Bayona ta Ondarrabi bitarteko inguruan». Eta nik: Non ez? «Geiago diño: Bi alderdikoak aintzat artu zuten, alegia, kala ortan ez legatzik arrapatzeko ezpada amuakin. Baiña pratzesak ez diote jaramonik egin lege orreri ta, eurak legatzak sare ta palangre galeraztuekin arrapatzen dituzte. Emengo ontziak ori ikusirik, alako «huelga» egin dute ta ontzi guziak etxera etorrita bear diran lekuetan ezarri beren naigabetasunak». Geio: «Zer esango degu ezta-baida orregaitik?»

Ezta-baida orreri nik diñot: Ezarritako lege ori aintzakotzat artu ba'dute «prantzesak» edo bestaldeko anai lebatz-zale arraintzaleak, eta gero baztertuaz lege a, sareakin eta «palangrea»kin arrapatu lebatzak, aiek egin dute gaizki, eta ez dira porta ez gizonki eta ez legeki. Baiña ni igaz ibilli nintzan Baion inguruko Kala'n lebatzetan, eta an ikusi ditut bestaldeko anai lebatz-zaliak lebatzetan, baiña ez dut ikusi sarekin eta «palangrea»kin baizik bakarkako tertzakin, onek loturik ur gaiñeko tresna biribillari. Aurtengo urtian ez naiz ibilli lebatzetan Baiona inguruko Kala'n eta ibilli ez nintzalarik itandu neutsoen bi arrantzalelebazaleri, ea aurten ikusi duten bestaldeko anaiak sarekin eta «palangrea»kin lebatzetan, eta aren erantzuna oso-osorik izanda auxe: «Ez». Geio, bi arraintzaliak: «Bestaldeko anai lebatz-zale arraintzaliak ikusi doguz eta ibilli dira, bakarkako tertzakin urganeko tresna biribillai lotutakoakaz». Onekin ez dut esan nai bestaldeko anai arraintzale lebatz-zalien aldezlea naizenik, ezpadabe gauzak beren gisan jarri bear dirala baiño.

Baiona inguruan dagoz Kala eta kalak amu-arraintzarako, au da: lebatzeratako, arrusel edo beseutarako... eta milleetatik barrenerantz dauden kalak ba'dira, ezin onartu legikee ez aiek eta ez guk. Milleetatik barrurentz dauden Kala'n edo kaletan amuzko arraintzaliak agindu bear leukee oso-osorik. Zegaitik? Ona emen arrazoia: Sarea baiño lenagotik edo lenbizitik Amua dalako biarra edo lan egindakoa barruko kaletan.

Ondarrabi ingurutik asita sartalderuntz, makiñetxu bat arrain-kala dagoz sareak baiño lenago, amukak lan egindakoak. Baiña zoritxarrez aregaitik edo oregaitik sareak egiten dute biar geienatan. Gure Bermio aurre edo inguruko kalak galazoak, debekatuak izan arren be, ñoiz-beinka lan-egiten dituzte saretarrak. Baiña ez dira ausartzen Bermio inguruko kaletan biarrean, gu lebatz-zaliok lebatzetan gagozenian, baizik gu etxean egualdi txarrakaz eta jai ta domekak ospatuten gaudenian. Onela egin dau biar, dandarrezko saretar-arrasteruak «Gure Ametsa» Donosti'kuak, Kristo'ren Gorputza'ren egunian. (Bagilla'k bat).

Gu bermiotarrok itsasoan egon ba'giñan Gorpuzti egunian, eta «Gure Ametsa» bere dandarrezko sareekaz biarrean saiatu gure kaletan, a zelako pelika edo burruka! «Pedreña»gaz egindakoa baiño askozaz aundiagoa izango zan nire ustez. Zegaitik pelika? Ona arrazoia: Galazotako edo debekatutako arraintzalan ibilli dalako biarrian. Guk bermiotarrok opizialki lortu dugu geure naia, au da, saretarrak gure arrain-kaletan ez jaurtiteko sarerik amuko arraiña arrapatzen amabi milleko zabaleran, eta Billau'tik Santa Katalina'rarteko luzeran. (Santa Katalina Lekaitio'kua).

Guk bermiotarrok lortu dugun ezkero opizialki, ez al dute lortuko guk bezelako agindua opizialki Katalin Donea'tik Ondarrabi'rarteko lebatz-zale arraintzaliak? Onek, Lekaitio'tik Ondarrabi'raiñokoak indartsu lan egin ezkero uste dot lortuko dituztela no-noiz, geure lez. Lekaitio'ko Katalin Donea'tik asi, ta sortalderuntz Ondarrabi'rarte dauden kalak amabi milletik barrenerantzkoak amuko lebatz-zaliak aukeratutakoak dira, lenengo lenbizi. Amuko lebatzaliek aukeratutako garaian ezan ibilten arrasterurik. Kala aberatsak izaten ziran, eta dira. Orregaitik juaten ziran gure gurasoak gure kaiatik itsas-ontziekaz lebatzetan, eta lebatzak asko arrapatuaz juaten ziran Donosti'ko kaiara lebatzak saltzen. Loa be egiten zuten Donosti'ko kaian. Donosti'tik ibilten ziran ainbat urteetan lebatz-sasoietan, eta txindi edo txanponak ederki etxeetara ekarri. Zegaitik juaten ziran sasoi artako lebatz-zale arraintzaliak? Arrazoi bigaitik. Bermio'ko kalak baiño aberatsagoak izaten ziralako, eta arrasterurik ibilten ez zalako amabi milletik barrurentz dauden kala orretan: Gaur bere, kala orretan, lebatz... asko arrapatuko genduke, baiña zori-txarrez arrasteruak saiatutzen diran ezkero, ezin juen gu amuko arraintzaliak.

LEBATZA ARRAPATZEN.—Aspaldion ederto gagoz lebatza arrapatzen Bermio'tik Ipar-sortaldean dauden kaletan. Salneurria, sasoi onetarako, ez da garestia. Igazko urtian eta beronen aurreko urte batzuetan garestiago ibiltzen zan lebatza. Arrapatu be gutxiago egiten zan. Norbaitek esango du zenbat eta geiago arrapatu, merkiago egingo du, eta zenbat eta gitxiago arrapatu garestiago egingo du. Arrazoia. Baiña ez dago merkiago dendatan dagozen salgauzak. Onegaz esan gure dut, ez nauela bat sasoi onetako lebatzaren salneurriagaz.

AZPEITIA'TAR GOTZON

Usansolo

EUSKALDUN FEDEDUN.—Nork ez dau baten baiño sarriago, esakera au entzun?: «Bai betiko aldiz, lenengo lenengotik, euskalduna siñistedun gizona izan da. Bere Jaiotz Erriko mendi, baso, zelai ta itxaso ertz zoragarriak ikusirik, bere biotz barruan, ez dirala berez egindakoak, siñistu dau. Ta siñismen orrek, ainbat oitura eder itxi dautso gaurko euskaldunari. Esker onekoa izan dan eskero, beti gurtu izan dau Lur maitagarri au emon dautsona.

Ez ziran gure aurrekoak jakintsuak Erlijio arloan, ta bai Jentil Erri, Kristautasuna ondo ezagutua izan arte beste laterri geienetan. Baiña len esan dogun lez, beti gurtu dau Jaungoikoa. Ta euren ustez, nor izango zan ba Jaungoikoa? Eurantzat onuragarri zana, ta orregaitik, beste azkoren artean Illargia. Zergaitik? Onen aldakuntzak, igarri igarriak ziralako mozkin edo «kosetxatan» arraiñetan, ta abar. Gaur be gure baserritarrak, eraiteak egin baiño len, begiraldi bat egingo dautsio Illargiari, oker egunean eraite ori egitearren, urtaldi bat galdu, ez jakien.

Ori olan ikusita, arrigarri da, ba, Illargia izatea eurentzat Jaungoikorik aundiena? Argi ikusten eben aren aalizatea, ta biotz biotzez gurtu egin eben. Ilzarrean, jantza ta abesti ederrenak berarentza, ta batez be Bagillekoan. Ez doguz gaur be, oitura zar bateri jarraituaz, su aundi batzuk egiten egun orreitan, ta gure soloak bedeinkatu, su ortatik artuko suziakaz? Zenbat gauza eder artu ditu kristautasunak, gure oitura zarretatik.

Jakiña, eziketa bako Erria zanik, Kristautasuna eldu zanean, ez zan erreza izango, dana alde batera itxi erlijio barri bat onartzeko. Gaiñera ta tamalez, Jaungoiko barriaren maitasuna beste gauza guztien ganetik azaldu barik, zigorra ta inpernua emon jaken janari, Kristau onak izateko. Ta oitura zarrak, bide barria, zigor, inpernu, deabruak ta danak nastaurik, Basa-Jaun, Lamiñak ta abar, sortu ziran.

Nork ez dau lamiñen ipuiñik entzun, neguko gaba luzeetan batez be, bere amamaren edo aitaitaren agotik? Gure auzunean bai beintzat. Ez entzun bakarrik, bai ta izena ipiñi be, gure auzuneko lurraldi bateri, Laminarrieta bere izena. Gaur be, berrogei ta amar urtetik gorantza dagoan bateri itaundu ezkero, azkar erakutsiko dautsue non ta zelan lamiñak ibilliten ziran gure artean. Baiña ori beste idazlantxo baten agertuko dogu.

Gaur, eskari bat egingo nauskizue irakurle guztio. Onelako izenak, «Laminarrieta», ipuiñak, oiturak, ta izakerak ezagutzen ba'dozuez, ez aiztuteko norbaiteri esan, Agur'en edo beste aldizkari baten agertu daitezen, gure izakera zarra galdu ez daiten.

Eskerrik asko.

ATXUTEGI'TAR JULENE

LARREKO II SAR-ATEA

SENDAGILLE

D. PERMIN IRIGARAY beste ezer baiño lenago izan zan sendalari; eta lagintza au betetzen leiatzen zan aurrenik. Erien osasunari begiratzea zeukan eginkizun nagusitzat eta arduraz ortan jardun zuen bizi guzian. Gizon batek besteari laguntza zor bait dio eta laguntza aundiena eri dagonean sendatzea da. Eta Larreko'k ez zuan ori egiten ogi-bidez edo irabazi kariaz bakarrik, lagun urkoanganako maiatsunez, jendetasunez baizik.

LARREKO'k millaka GI-ETEN diralakoak ebaki ta sendatu zituan, berak aitortzen digunez. Bakoitzarengatik orain ebakuntzak kostatzen dirana jaso izan ba'lu, sakelean diru asko sartu izango zukean; sosak errez irabaziaz. Operazio geienak, ordea, duarik edo uskeri batengatik kitatuak. Eta sendatzea aski ez zuala 1931'garren urteko ARGIA'ren EGUTEGIA'n emango dizkigu gaitz ortatik begiratzeko oarrak: «*Etena noiz urkatzen da?... Geienetan indar bat egitean, estu aldi batean, anditsua gogortzen zaio, oñazea asten da... Etena sendatzeko bide bat baizik ez da, ebakuntza edo opzeraioa...*» Onela joan zan «LARREKO» Jende tarteko osasungarri gaiak («Higiene Popular») zabaltzen.

ARGIA'ren Egutegi ortan bertan 1933 eta 1934'garren urteetan Amak nola bere bularreko esneaz aurrak azi erakusten digu. Eta umea koskortu arte zer nolako artak eman bear zaizkion. Guzia euskera errez argi ta garbian adieraziaz. Lan oni «Larreko»k osasunari begiratzea esan oi zion. Begiratu zaindu bait da eta ura maisu genduen izkuntzan eta sendagintzan. Eta bere lagun-urko euskaldunoi geren buruok zaintzen erakutsi nai izan zigun. Nola lan egin, nola atseden ar, jan-edanean neurriz joka eta alaber beste ibilleretan. Gorputzaren garbitasunak zer nolako ajola duan osasuna begiratzeko ez zan aspertu esatez: eskuen garbitasuna, kutsu gabeko arnasa artzea, gaitz asko urrutiratzen bait ditu. Esku zikiñekin artzen dan jana, zenbat eta zenbat kutsu txar ez ote dute bidaltzen zintzurretik barnera? Galdegiten zigun eta berak erantzun: «Osasuna garbitasunaren bitartez». Geienetan eskugarbitzea eder eta atsegin zaigu baiñan geiago bear omen luke osagarriaren giltza dalako.

Zer ez luke esango «LARREKO»k oraingo giro kirats, aize zikin ke ustel eta gure inguruan dabiltzan beste usai txarrez? «Poluzioa» deritzaten gaitz ori beldurgarri dala noski. Bearrik aren denboran gaitz ori txikia zan eta D. Permin mediku jaunari bere bezero esker onekoak maiz opa izan zizkioten erregali izoki ta amorrain ederrik Bidasoa'n, Irati, Saraitzu, Erronkari ta beste ibai eta erreketan arraintzan atxemanak. Ur garbiak bait ziran orduan.

Jan-edanaren geiegikeria gu euskaldunon gaitza ezik izurtea dala ondo ezgutzen zuan «Larreko»k eta bein eta berriz aolku zurrak eta latzak eman bearrean arkitu zan. EDARIKOIA ez zuan batere gogoko. Moskorkeriaren aurka asarretzen zan ba-zekielako edarikoia gaitz guzien mendean erortzen dala: burutik naasten, eta orobat giltzurdin, biotz, urdail eta gibeletik galtzen. «Jeremiakeririk gabe esanda erriaren ondamena zala aitortzen zuan. Eta berak eman zigun erakutsi ederra beti eta nun nai jan eta edan gartsu izanik, eredutzat ar dezagun.

Gaitzak sendatzeko zer nai jakingarri edatzen alegindu ba'zan, gaixoen oiñaze ta nekemiñak arintzearren, osagille baten xede nagusia ori bait da, alegia, azken arte osasuna artatzea. Ba-zekian, ordea Larreko'k alik eta erremedio guziak eman da gero, gizonari Erioa eltzen zaiola. Une larri ortan ere sendalariak esan bear du azken itza. Eta onela esanik utzi digu Dr. Irigaray jaunak bere «*Guía médica del Asistente a moribundos*» liburu mamitsuan. Il urren dagoanaren etxeko, senide ta apaizak ere bai une larri ori ezagun dezaten. Liburu onek Dr. Marañon'en itzaurre bat dakar eta beronek adierazten digu mediku ospetsu onek kide zuan Dr. Irigaray aintzat artzen zuala sendagitzan izen aundikoa zalako.

Iltzera doazenak nola lagundu argi azaltzen dizkigu eta zer nolako prestaera egin bear zaizkion ere bai. «*Axular*»en itzez baliatzen da, onek idatzirik utzi bait zuan: «Zeren gaitz izanen da eriotzeko orduan eritasunez eta oñazez zaudenean bear dan berotasunarekin Jainkoari gomendatzea... «eritasunak berak emanen bait dizu egitekorik asko». Gogoan artu bear dan egia, benetan. Gure «Larreko»k eritasun motarik arruntenak izendatuaz bukatzen du bere lana. Baiñan ez du uzten aipa gabe sendalariak nola jardun bear duan eri aundiaren gelan sartutakoan: astiroki, trankilki, poliki. Laisterka ez bait da lan onik egiten. Ez da dudarik ala izan zala beti «Larreko»ren jokabidea sendalari gisa.

Euskaltzale, erri-maitale eta kristau-gizon bezela nola jardun zuan urrengo batean ikusiko dugu.

ANTONIO M.ª LABAYEN

Itz bi eskatu dizkidazu, Martin Ortzargi, sar-ate bezela; ta nola nik ukatu dezaizkizuket? Ez litzakit legezko. Baiña, berriz ere galdezka: Ote duzu gero idatzi duzun liburua aurkeztu bearrik? Ez al zaitugu aski-ainbat ezaguna euskal literaturan? Alaz ere, ain biziki opa duzun ezkero, emen dituzu itz melgera auek.

Bi auzo ditu Legazpi'k, ondo lerdenak: Telleriarte ta Brinkola. Zu Telleriarte'n bizi zera, Saletxe baserrian; ortxe bait ziñan sortu 1916-2-14'n. Damaso zure aita, legazpiarra, ta zure ama Jertrudes Azurmendi, Oñati'koa. Ortxe ezkondu ziñan 1959-1-8'an, Oñati'ko alaba Juana Arregi Idigoras'ekin. Bi alaba izan dituzute, M. Pilar eta M. Anjeles, muxu-belxko ta langille biak.

Zure len-ikaskizunak —azkenak ere bai?— Brinkola'n burutu zenitun, garai artan apaiz-etxean eskola ematen zuen eliz-gizon argiarekin; eta berezkoak gaiñ, ainbat gaitan eskolatu ziñan. «Berezkoaz gaiñ» diot, eta olaxen da: berezkoa da, izan ere, norbere izateak damakiona geien bat, euskaldun jendea jator biurtzen duena, joandako urteetan egiazki. Gaur eskolatuago datorkigu gaztedia, baiña euskaldun-ezago ere bai, tamalez; odol-odian dakarten kultura-sena lagarik, arrotz tankeraz bait zaizkigu moldatzen.

Basa-seme jatorra zaitugu, zure deiturak adierazten digunez; urte-mordo batez zamatua onezkero. Sei-zortzi buru dituzu ukuilluan; nolako buruak gero! Etxalde joria ere ba-duzu, arto ta babarrun sail ederrez inguratua. Orregaz kanpo, etzera nagia, ta fabrikan lan dagizu, ofizial ona zeralarik: 40 urte daramaskizu Legazpi'ko Patrizio Etxeberria'ren lantegi sonatuan. Gaur, izan ere, igurdizi ta esku-dantza bear da bizimoldeari gurpilla emateko. Eta zuk, gizaseme azkar, olaxe fabrika ta soro, ederki uztartzen dituzu boropil bigunean.

* * *

Gaiñerakoan, kezkati zera-ta —obe: olerkari— idatzi egiten diguzu, lumaren punttaz zeure barrunbe sentikorra ustu ta iaragarri-aziz. O bai! Baserritar zera, ta olerkari ta idazle. Ez da gezurra. Ainbat olerki ta poema luze-xamar dituzu nik amar urtez argitaratu nuen OLERTI (1959-1969) aldizkarian, lar luzatu gabe argia ikusiko dutenak.

Eta orain eleberri bat, nobela bat idatzi diguzu, baita argitara eman ere, legazpiar lagun zintzo batzuei esker. Nik ere izan dut onetan parte: zu lotsatia izaki, beti bait dizut bultz-eragin euskal arlora. Etzaitugu, alegia, langille urri ta motz, pizkor ixilla baizik. Ta orrek balio du, ixilka egiten dan lanak, egiazko euskalduna itzetan labur baita, ta luze egiñetan. Gure omen zarrak olaxe darasa beiñik-bein.

Esku artean dugu eleberri au, zuk egiña. Ta nik zer esango? Gaillurreraiño jasoko al zaitut? Edo-ta lur azalera eratsi? Ez bata, ez bestea noski. Ertz guztiak dute beren neurria, baita liburuak ere. Nobela onek gauz ederrak dauzkanik ezin dezakegu uka, ta bidenabar —nola ez?— akatsak ere bai: bakoitzak ditugu geure begiak, gustuak, ikusmira berezi-berezia; ta nola aitor dezakegu neri eder zaidana bakar-bakarrik dala ona, ta bestea ez? Batez ere gaur, gramatika legerik aintzakotzat artu nai ez dugun garai biurri ontan? Auzi onetan ere mingaiñez askatasun aldeko agertu oi gera, baiña urkoari, geure iritziaz bat ez baldin badator bereziki, jipoia ederki berotzen diogu. Legezko ote jokabide au?

* * *

Arira etorriaz, zure nobela —nere ustetan— ederra duzu egal askotatik begirata, antze ta taiu andiz osotua, klasiku saillekoa bear bada, gaurko ao-xuri bitxiari orren atsegin etzaiona. Baiña denok ez gaude oraingo gizarte naastu onetan ere kezka berdiñez kutsutuak, denok ez gera iñolaz ere moda berrien irrikaz bizi, naiz-ta munduarekin abiá bearra izan. Modakoa, ur-punpuillu antzo, aize-eragin urrikoa duzu, ta klasikua beti bizirik dirauna. Biotan, zein obe?

(Jarraitzeko)

AITA ONAINDIA

AURKITZE ZORITSUA

Uda ontan, beste abade bigaz, ibilkuntza bat egiña naz. Ibilàldi ori Naparroa'ra izan zan: Iruña'tik Auritze-Orreaga ta Abaurren bitartean dagozan Aezkoa'ko erritxuetan euskerea zelan aurkitzen dan jakitearren. Izan be, erri txiki politak goi-naparroako erritxuak, baiña, geienetan, gizon eta andra urtetsu batzuk izan ezean, euskera ia guztiz galdurik dago. Bertan euskaldun antzerako arpegiak ikusten dira, benetan euskal abendaren seme-alabak dirala ezagun dabenak; eurak ikusteaz bat-batean, euskereak gure aotik urteten eban, baiña eurak, noizian noizian batek edo bestek baiño, ulertu ez! tamalgarria benetan etxe ta gizonen ereak.

Baita Orreaga aldetiko zugazti mardul ikaragarriak euskera eskatuten dabe, baiña il zorian aurkitzen da. Dana galduko ete da? Itxaropenik ez etedago? Bai, irakurle: Alde orretako erritxo batera eldu gintzazan eta bertako apeizagaz jardun aldi bat eukitearren, urreratu gintzazan abade etxera ta atartera eltzean, ura bai «Aurkitze zoriontasua», barru aldean onelako itzak entsuten ziran: «Au zer da?» itanduten eban gizonezkoaren abotsak, eta umeen erantzuna: «Au eskua da», ta, gero «Auek zer dira?»: «Auek begiak dira», etb. eta, etab.

Au euskera irakazten dabil esan genduan ta orrelaxe zan izan ere. Irurogeita bost urte inguru eukazan Erretore jaunak, soin indartsuduna ondiño, ta lan egiteko gogo aundiak ebazana. Antxe jakin genduan gizon orrek, bere gogoz, iru erritxotan, bakotxean ume aldra bateri baita ogei bat mutilleri euskera irakasten ziarduala kementsu ta lan ikaragarriagaz.

Ber-berak esan euskun orain arte zaar batzuk bakarrik ekiela euskera pizkabat. Bere alegiñakaz, Aezkoa aldeko erriak Orreaga'ko Andra Maria'ren eleizara urtero egiten daben erromesean, aspaldiko urteetatik aurten lenengoz euskera ta erdera biak erabilli dirala, ta elizkizunean egozan zarrak batez bere, euskera entzutean, barruko dardar goxoagaz, zotinka urturik egon zirala.

Oraindik, ango erriak euskal gogoa ta euskal barrua ba-dituela esan nai dau orrek. Ba-dira alde orretan beste abade batzuk be umeai ta gazteia euskera irakasten diarduenak. An euskera biztutea errez da, etxe askotan ondiño galdu barria da ta orrezaz gaiñera, askok euskeraz itz egitean au esaten dabe: «nik ez dakit euskerarik ta orrek biotzean min emoten dausta». Len, «zertarako da euskera?» erantzuten eben, eta, orain tamala erakusten ba'dabe lurra gertu dago; orain, ekin ta erein.

Orra or Naparroa'n eta beste euskal errietan gizonak egin daikeen eta egin bear daben lana, euskeraren bidez euskal arima ta Jainkozaletasuna sakonago sustraituteko.

Oarra.—Eztabaida orretan sartzerik ez neuke nai, baiña auxe esan bear dautsuet: Ibillaldi orretan iru edo lau apeizekin itz egin genduan. baita galdetu be, bakoitzari bakarrean, «H'ri zer deritxazu?» ta guztiak: «eragozpen da, ta, beintzat, askot darabillen 'H' iñolaz ere ezin ontzat eman».

GALLASTEGI'TAR KAULDI

II ERRIARTEKO JAIALDIA

Loiola'ko irugarren eresaldia

Lagun baten bidez bideratu nintzan Loiola'ra. Ikuspegi eder, mendiarte goibidez eta edertasunezko egun argiz. Bide bakarra, ixiltasuna eta eguzki bixigarria. Aldamenka baserriak mendiartean zinztzillika. Ikuspegi orren bitartean goaz. Ernio'ko gaillurrak, arkaitz zuriz, bere gurutzea argi ta garbi ikusten. Aurrean beltza ta sakona, Izarraitz. Zer gutxi ezagutzen degun gure erria!

Ixiltasun atsegin baten aurrean arkitzen gera. Eldu gera bide zabalera, zuaitz eder aldamenka ta aurrez-aurrez eliz aundi gogor eta edertasunez apaindurik: Loiola.

Ixiltasuna bere barrenean eta jendez beterik... Xabier Bello'k dio: Lamentación 3.ª de Felipe Gorriti. Felipe Gorriti eta Osanbela gurea zan, euskalduna; Uarte-Arakil'goa sortzez eta musikaegille goien bat Tolosa'n. Berak irabazi zun Paris'en organo musika egilleen artean, lau urte jarraitzen, lau lenbiziko sari. Gorriti jaiñutza zan berez.

Bere acorde soillaren adertasuna entzuten gaude, Roger Stalman igelestarraren abots eder garbian, tankeraz, eztiloaz... Musika alemana ta sakona kantari zaigu Roger Stalman, Eresaldiak ba-ditu euskal kantategi bereziak. Lore ederrenak, Ziberi'ko eta Lapurdi'koak. Arbizagi ederra —Txoriñoak kaiolan tristerik du kantatzen— Roger Stalman'ek Loiola'ko eliz korotik abestutzen euskera garbian, tajuz, nortasun bereziaz. Olerki ikuskizun lore ederrena euskal kantategian. Salbatore gora da —Adio ene maitia, adio sekulako, nik ez det beste penarik maitia zuretako— Erantzuna Victoria Canale'k bere abots zoragarriakin atsegiñez betetzen digu biotza. Nere zorion sutsuena ar ditzatela!

Bigarren «Via Crucis» F. Liszt'en musika aspaldi gerenatu genuela esan diteke. Organoz asten da lenengo egonlekuan. Gurutze-bide ederra. Soprano, Victoria Canale; contralto, María Jesús Danborenea; tenor, Julián Olaz; bajo, Roger Stalman eta organo, Monique Da Ros. Neke aundi gabe abestutzen dute ta ongi dakien señalea da. Jentea oso ixillik egon da denbora osoan, eztulak ixillik daude. Matiz txikienak beregan nai ditugu. Laukoteak abestutzen dutenean abesbatza dirudi. Beethoven'en urduritasun bat oartu genun. Iñoz eztegun bezelako edertasuna. Aiñ gutxi iruditu zaigu...

Ainbeste txalo irabazi duten ezkero, abesti atsegin bat eman digute: «Adio ene maitia, adio sekulako. Nik ez beste penarik maitia zuretako». Txaloak luzaro iraun dute bero-bero, koru txiki onek entzuleak guztiz irabazi dituela adierazirik. Jende taldea zoratzen atera zan eresaldi ontatik eta txalo ugari ta luzeak jo zizkien guzien buru ta eragille dan Xabier Bello Portu'ri. Irten nintzanean, barrungo txalo otsak jarraitzen zuan, artean.

Berebillean ezerita gaude. Illunabarra... Loiola uztera goaz... Bat batean, gizon bulartsu baten otsa, apaiz tankera abotsa dirudi. Loila'ko bigarren erriarte jaialdia. Irugarren eresaldia... Berebil barruan goaz ixillik berriz entzuten irugarren eresaldia...

ARREGI'TAR ESTEPAN'ek

AGUR

III URTEA
54 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - IRAILLA - 23

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

AUNDIKERIA

Gizonaren lenengo guraria izatea da eta ori lortu ondoren aundi izatea. Txikitarik gure biotzetan aundiak izateko guraria sartu euskuen, eta orretarako ziran gure ikasteak eta alegiñak. Onu okerra zan. Obeto besteai laguntzeko gogoa ta guraria sartu ba'euskuezan. Baiña orduko pentzaerea eta zarren gurari bizia zan: eurak, bear ba'da, gauza aundirik ez ziran izan eta urrengoak aundiak izatea nai eben.

Aundi izate ori lortzen dogunean, eta batez be agertzen danean, poztu egiten gara, baita arrotu be. Ortik datorku gero aundikeria, gure gizartean ain zabal dabillen gaizoa. Berez barruan bidezko zan jokera bearrezko ori arrisku biurtu jaku.

* * *

Eta aundikeri au non nai agertzen da.

Sendietan, edo erriko jauntxuak beti izateko gogo lez, edo aurretikoen egite ospetsuak goratzen ekiñaz. Errietako jauntxo oneik kalte aundia egiten dabe: besteai euren eskubideak ukatuaz, euren aurrerapena galazoz, ondasunak norberaganatzeko alegin duaz... Erri geienetan izaten da ondasunez eta aginpidez beti jauntxu izan bearreko jente gorrotagarria. Eta gurasoakandik semeekana joaten da sarri.

Aberriak eurak be aundi izan-gura au sarritan erakusten dabe eta orretarako euren lurraldea zabaltzeko besteenak arrapatzen dabez eta beste aberri batzuk menperatu be bai.

Laterrien artean aundikeri oneri beste izen bat dagokio: «imperialismo» edo kaisarkeria. Auxe izan dala uste dot gizadiaren kondairan izan diran gudarik geienen iturburua. Batzutan, iñork aurkitu bako lurraldeak zirala-ta, ara joan eta atzeratuta bizi ziran anaiai euren ondasunak kendu eta norberaren aginpidea ezarri; aurrerapenak, eta erlejiñoa bera, eroaten goazala esan orretarako. Beste batzutan, kaisar batek edo laterri batek bere burua sendo ikusten ebanean atxaki labur batzuk atara eta aurka gudea egiñaz, menperatu. Baiña barru-barruan betikoa: aundi izan bear.

Batez be antxiñako laterrietan sarriago, aunditasun ori lortzeko kaisarrak bera Jainkoa dala be esaten eban... Betikoa, zelan edo alan, aundia izan bear.

* * *

Eta laterritik sartu zan eleizara be aundikeri au. Lenengo urteak eta gizaldiak apaltasunez betekoak ziran eta jazarpenak artu bearrekoak. Baiña gero aundiakaz batatasuna egin zanean, batez be Konstantin kaisarraren aldietatik aurrera, okerkeri ori sartu zan: Aita Santua kaisarraren antzekoa, gotzaiñak errege-semeen antzekoak...


Gaizo zar eta txar onetatik osatugura bizi bat agertzen da gaur gure artean. Eleizeak gizadiaren otsein izateko guraria ta beartsuen alde lan egiteko asmoa erakusten dau: erri zeea izangurea ba dauka, eta au pozbide bat izan leiteke mundu zapalduarentzat.

Baiña ezin ukatu gure begien aurrean noizean bein agertzen diran jazoera tamalgarriak, bide barri onek aurkako erakutsi lotsagarriak.

* * *

Euskalerria, bere izaerearen mamiean, ez da izan iñoz aundikeri-zalea, ez eta kaisarkeri edo «imperialismo»-zalea be. Bereagaz pozik egon da bakean itzi dautsoenean. Ez ete jaku guri be nastauko gizartearen gatx bildurgarri au? Gure erritxuetan, beintzat, euskaltasuna galdu dabenak izaten dira geien jauntxukerietan ibilten diranak.

AGUR



ESNATUKO ETE?

Gizonaren arazo nagusiena bizi izatea da, ta bizia al danik egizko ta zoriontsuena. Arazo onen argi-bidean, gizadia aldra bitan zatiturik dago. Askorentzat bizia ta zoriontasuna, ementxe, lurrean asi ta zoriontasunez betetuaz, amaitu bear dau; beste aldra aundi batentzat ostera, emengoa amaitukeran, bizia aldatu egiten da. Muga oneen ostean betiko bizitzaren biztuerari itxaroten dagoz.

Lenengo talde orren ugezabak Marx, Markuze, Freud ta abar dira...; ta bigarren taldearen burua barriz Kristo. Diru-zaleentzat, bere lagun izatea, zailla zala, esan eban Kristo'k. Ta irudi bat jarri euskun gure ulermenerako: «Jostorratz burutik gamelua errezago igaroko zala, diru-zalea Jainkoaren betiko adiskidetasunera eldu baiño». Txantxetakoa ez da irudi gogor au.

Jainkoaren erreiñuko jendea, beargiña, zeia, pobrea, geien izango da. Emen, argi, agertzen danez, iñork, egiz, ezin erabilli izango dau kristiñau izena, norbere diru potzuaren tapagarritzat. Kristo berak gora-bera au argituta itzi euskun: «Jaungoikoa ta dirua, era batera, ezin otseindu daitekez». Jaungoikoaren erreiñua beartsuena da.

Euskaldun jendea, gizaldiz gizaldi, asko ta asko Kristo'ren saillekoak izan doguz. Baserritar lanpetuak, sarri zapalduak, siñismen giroan bizi izan dira, betiko aberriaren poztasunagaz. Era berean, euskal langille askok jokatu eben oraintsu arte, emen lurrean. Olantxe ikusi ta artu eben bizitza, onen esan-naia ta erantzupena. Era orretan jokatu eben gizontasunez, lan arazoetan batasun eredugarrian. Gure langilleen arautegia munduko kristiñau arteko onentzat ezagututa egoan.

Kristiñau legepean bizi ziralarik, Kristo'ren irakatsiz gizon jakituri egizkoa sortu eben ta argi orren bidez argituta gizartearen bizitzari, duintasunez, erantzuten jakin eben. Gure euskeldun-euskeldun langilleen pentsabidea Kristo'renagaz bat-egiñik egoan, ta gizarte beartsu ta langilleari, egokitasunez erantzuten alegiñak-alegin ebiltzezan.

Gaur ostera, beste bide bat sortu da gure lur onetan. Lengoak egiñiko bidea apurtzeko griña gogorra dago batzuen artean. Lengoan itzi, astu, ta aurrera, norbere bidetik egitea ez da. Lengo bat edo beste, ontzat, artzen dira, norbere ondo etorrirako, ta gaiñerako guztiak ez dira ezer.

Ze alde dago lengo guztien ta oingo banaka batzuen artean? Zer euken arek oingo banakak nai ez dabenik? Gizonak ziran arek oingoak bezela, idazle jatorrak ziran arek, oingo onek beste era batekoak. Lotsa aundiko gizonak ziran arek bata-besteentzat, oingo onek beste era batera dabiltzaz. Bear asko egin eben ainbatek lengo aldian, ta ixiltsu jokatu; gaur, zarata asko nai dabenak dabiltzaz, goitik berako txibita ots naiean. Egiz, ez-bardintasunak ba-dagozela dirudi.

Jaungoikoak Egille bezela, Beregan siñistuten dabenentzat, eskubide oso-osoak ditu. Ta Jainko siñismena euki nai dabenak be, eskubide osoa dauka, siñismena maite ta argi onen gisara bizi izateko. Iñork ez dogu eskubiderik siñismena besteei galdu-erazoteko.

Gaur ostera, eleiz-inguruetarik eleiz-inguru, abadetxetarik abadetxe, komenturik komentu ikusten doguz Jaungoikorik ez dala bear aldarrika dabiltzezenak. Eleiz gizon, eleiz toki ta eleiz gauzekaz baliatuten dira, Jaungoikoa ta Aren irakatsia Euskal-erriaren biotzetik kentzeko. Noz arteko loan egon bear ete gara arazo onetan... Bai abadeak eta bai komentutarrak, zoragaria ereiten jabilkiguz gure garitzan, Kristo'ren alorrean, geure begien aurrean ta eleizaren aldizkari ta tresnakaz baliaturik. Egiz, min emoten dau, geuk, itsu itsuan, laguntzeak.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Zapiak Aizetuz

Ez doguz iñoiz ukatu ta orain askoz gitxiago; AGUR gure aldizkari onen elburu biak oneik dira: Euskalki guztietako euskera errikoiari indarra emonaz eta irakurleen adimena landuz, egizko ta berezko batasuneruntz jotzea, alde batetik; bestetik, iritzietan eta gizarte arazoetan darabillezan naste-borraste ta azpi-jokoak lurgaiñeratuz, argi pizka bat biztutzea, au da: «linbokoak» esnatzea.

Jomuga oneitara eitzea ez da izan erreza, ez, baiña bide geienak urratu doguzala esango neuke; eta zintzotasunez «argi billa» ibilli diranak ba-dakitela orain zein eratara edo nundik-nora jo. Euskereari lagundu naian diran apurrak —mingain luzedun larregi bai dago— ba-dakite orain nori ta zelan laguntasun ori emon. Margo guztietako aldizkariak dagoz, eta bakoitzak berari egokien deritxona artzea baiño ez dauka. Onela, bear ba'da, «euskeraz zalako» orregaitik edozelakoeri laguntzea amaituko da, batez be, gure izakera, izkuntza, siñismen eta beste gauza eder asko ondatzen iñardueneri...

Gipuzko'an aldizkari ederra dan GOIZ-ARGI'ren 152 gn. zenbakia irakurri dogu. Ain txukun eta mamintsu argitaratzen dan aldizkari orretan, lau edo bost idazlan sakon aipatuko neukez, baiña, baita uts «txikitxo» bat ere: Lenago be, GOIZ-ARGI'ko irarkolan, saguren bat iñoiz sartu zan, argitaratu baiño len idazlanak aizetuz... Ez ete-da olakoren bat orain be jazo «Abustua» illaren izena aukeratzean? Olako korotzak egiten dakiz beintzat, sagu baltz orrek!

Baiña ez noa ortik; Jose Lasa'k egindako «Delenda est Cartago» idazlanari jazorikoatzaz natorkizue. Arrituta nago benetan —amar milla aldiz integristatzat salatua izan naizen nerau— olakoak irakurtzean. Jose Lasa adiskideak (GOIZ-ARGI irakurri ez dabenentzat, diñot) bere artikulo orretan, Larresoro ta Arantzazu'ko «begi onezko» erdi-erabakiak derrigorrean sartu-erazo nai dauskuezenak, indarkeri-zaletzat salatzen ditu, ez arrazoi barik! gu danok «eskola-mutil» analfabetatzat bota gaitue-ta. Ara baiña, Zeruko-Argia'ko zuzendaria dan Miren Jone Azurza'ren «neutralitatea»: Lasa'ren idazlana «banatzaillea» dala esanaz, egilleari atzera itzuli!

Ez goaz, ez, zuzendari baten eskubidea eztabaidatzera, baiña argi dago ez dirala «idazle» guztien lanak neurri bardiñean ikusten: Larresoro ta bere eskolakoak, «Behin Batean»go ipuinlaria ta AGUR nabarmentzen alegiñak egiten ari dan «karikakurista» exkasa, atsegiñagoak ditu, duda barik, Miren Jone'k. Ez ete-dira «izkutuko pentzalariak» banatzaille ta integrista? Basarri ta beste h'rik bakoak ez ete-dira arpidedunak eta irakurleak jarraitu dagien onartzen diranak naizta iruntsi-eziñak izan? Nere ustez bai... ta kito!

Eta erdibidekoak itzirik, gatozan onuntz: Beste aldizkari bateko zuzendari dan jaun batek, Barakaldo'n eta entzule askoren aurrean, guzurrezko ta arriskugarri dan salakuntza egin dau. Ots: guk, diru aldetik talde politiko baten laguntza illerokoa artzen dogula. Ez dau gauza gitxi esan berba-lapiko orrek. Egia ba'litz ez genduke estu aldirik izango, baiña zoritxarrez egia beste bat da. Dana dala, ez gara gu bere bizitzan sartu... giza-legeak al dan neurrian gordetzen doguzeta. Iñoiz arrikadarik artu ba'dogu. bai, erantzun dogu. Ta emendik aurrera be bardin, baiña adarra jo al izan dogunean, ixildu gara, «senditik kanpora» iñork barrerik egin ez dagian. Baiña zuzendari orren jokabidea, geiegizkoa da, ta ez genduke barriro olakorik nai. Bestela «ecos de sociedad» orrekin asi bearko dogu... ta politak dakiguz!

Bakoitzak egin bei euskeraren alde al dauan guztia... baiña kontuz azpi-jokoagaz! AGUR agertu zanean, «illetak» jo euskuezan lenengo egunetik. Zarrak eta alperrak giñala esanaz, iru edo lau illebeteko bizitza emoten euskuen, besterik ezean, diru aldetik itoko giñala, esanaz...

Ikusten dogunez, «arro-putzak» izateak ez dakar gauza onik. Arpidedunak eta dirua, esatetik izatera, oso ezbardiñak dira, ta Jainkoari eskerrak (olako «mitoetan» siñesten dogu-ta) oraingoz beintzat zutunik gagoz, ta len esan dogun bezela, egia nun-nai zabaltzeko.

Es dogu etsairik nai, gure lagun zintzoen laguntza baiño. Bestearentzat bestearena, ta agur.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Axular'en "Terminachos"

Aldi baten, Aita Villasante «Despojo sistemático de la Lengua de Axular» izeneko lana argitaratzen asi zan, «Euskera» aldizkarian (1956-5-59). An ikusten danez, Axular'ek erderazko itzak eurrez erabilli ebazan. Zegaitik? Itz jatorrak ez ekizalako, urrean, eta ori, orduan iztegirik ez eukalako, guk orain daukaguzanez.

Zelan esango dautsegu erderazko itz orrei? Aita Villasante'k, bere «Historia de la Literatura Vasca»n, itz *barriai* «terminachos» deritze; bidezkoago deritzat neuk be erderazko itz orrei «terminachos» esatea Aita Villasante'gaz batera etorteko. Azken «terminachos» orreik, gaur egunean eurrez be eurrez ugaritu dira. Nik, egia esan, ez dautset itz orrei garrantzi andirik emoten; baiña, batzuek egiten daben jokabideari jarraitzen ba'dautsagu, egunen baten «erderazko euskera» jaioko dala uste dot.

Aldi baten, «terminachos» izeneko itz orreik zirala-ta, ulertu be egiten ez zan euskera erabilten eben batzuek —garbikeri-zaleak, ez garbizaleak—; orain, ostera, «mordoillo-zaleen» bidez, beste orrenbeste jazoten da «euskeranto moderno» onezaz. Irakurri, bestela, erri batzuetako jaietarako egiten diran egitarauak (programak): ango erdia be ez dabe ulertzen erritarrak. «Olan baiño erderaz irakurtea naiago dogu guk», esaten entzun neutsen lengo egun baten basarritar batzui. Eta arrazoia eben; neuk be ozta-ozta ulertzen neban: h'txez beterik, gipuzkerazko adizkeraz, iñoiz be erabilli ez diran itzak, «Cajón sorpresa», «Café completo» ta guzti. Astakeri utsa erriaren aurka joatea! Eta erriarentzat egiten ez ba'dogu, norentzat egin bear ete-dogu? Salamanca'ko edo Tokio'ko Unibersidadeko ikasleai irakasteko? Naskagarri izugarria!

Baiña, noian nire egitekora. Ikusi dagiguzan Axular'en «terminachos» orreik. (GERO, Aita Villasante'ren argitarapenetik).

41'GARREN ORRIALDEAN

Ordenako: del Orden. Nire ustez, «de la Orden» bear leuke izan, «Orden Militar edo Civil»-en batetakoa; aitonen seme asko *Anaidi* orreitan egoten ziran sartuta.

Konseillari: consejero = onulari, aolkulari, aolku-emoille.

Famatuari: al afamado = entzutetsuari, ospetsuari, ospatsuari.

Gogotik: del alma. Batzuek entzun be ez dabe nai izaten «gogo» *espíritu* edo *alma* danik; baiña A. Villasante'k be olantxe itzuli dau.

Faltak: faltas, culpas = utsak, obenak.

Obligazino: obligación = eginbear.

Errezibituak: recibidos = artuak.

Obrekin: con las obras. hechos = egiñakin.

Borondate: voluntad = nai, naimen, gogo. (Bestalde, «borondate» itza toki guztietan-edo dago sartuta).

42'GARREN ORRIALDEAN

Liburutto: librito = oraingo idaztitxo.

Kanporat: lit., al campo; afuera, al público = at.

Amoreakgaitik: por el amor (A. Villasante'k, en atención a) = maitasunagaitik, maitetasunagaitik.

Errezibitua: recibido = artua.

Fama: fama = entzute, ospe.

Baliatu(ko): valerse = era asko dagoz aditz ori erabilteko.

Zure... fama on famatuaz: acerca de tu fama buena y afamada = entzute on ospatsuaz.

Obligatu: obligar = beartu.

Enplegatu: necesitar («emplear»-tik, bearbada) = bear izan.

Baliatu: valerse (ikusi aurrerago diñoguna).

Izatu da: ha sido = izan da.

43'GARREN ORRIALDEAN

Pausalekhua: lugar de pausa (A. Villasante'k, lugar de descanso) = atseden-lekua.

Portua: puerto = kaia.

Koaitak: cuitas (ainbat itz).

Konta: contar = azaldu.

Alegeraki: alegremente = pozik, pozez, alaiki, alaikiro. (Emen dira mutillak gaur eguneko idazle «moderno» batzuk! Erderazko *-mente* euskeratzeko, erderazko itzari euskerazko *-ki* atzizkia jarten dautsoe ta kito; ez dozu buru-auste andirik izan bear; begira: seriamente: serioki edo seriozki; finamente: finki; decentemente: dezenteki; colosalmente: kolosalki; civilmente: zibilki; históricamente: historioki; materialmente: materialki; oficialmente: ofizialki; pródigamente: prodigoki; generalmente: jeneralki; naturalmente: naturalki; químicamente: kimikoki; tristemente: tristeki... eta abar. Benetan «tristeki» doala gure izkuntza!)

Errezibi: recibir = artu.

Konseilla: aconsejar = aolkatu, burubidea emon, aolkua emon.

Kida: guiar = zuzendu, eroan.

Sostengua: sostén = euskarri, eusgarri.

Kantabres: cántabro = kantauritar.

Naturala: natural (A. Villasante'k, auténtico = egiazkoa, jatorra).

Eta oraindiño, leenengo iru orrialde erdi baiño ez doguz ikusi. Argi dagoanez, Axular'ek ez eban euskal-iztegirik erabilli.

ETXABIER

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Esaera Zarrak

Bear bada askorentzako ezagunak izango dira, beste batzuentzako ordea, ezjakiñak. Dena dela, nere iritzirako, gauza tikienak ba-dute beren garrantzia ta aberastasuna. Noiz nai entzutea ere, ondo etortzen zaigula uste det. Asmo oiek beraz, bultza arazi didate, nere guraso senide eta laguneri entzundako esaera batzuk azaltzeko. Ona emen:

Lan zion landan; etzi San Bartolome eta soiñakua (dendan.

.....

Denian dentxua; nere gizontxua.

.....

Ardi tikia, beti bildotx.

.....

Pobreza; nai duenak artu beza.

.....

Lankaya eskuan, eta biotza zeruan.

.....

Umearen zentzuna; etxean entzuna.

.....

Moskorraren etxean, ordurik ez pakean.

Zartari zarrak, pertzari: «Ken adi ipurbeltz ori».

.....

Babie, bera baiñon obie, saldie; arrekin egindeko zopa, gauza primorie.

.....

Gaizki oitua, beti dago oroitua.

.....

Batzuen txarra, bestien ona; dringilin-drona.

.....

Aldiz, aldiz; zapataria zaldiz.

.....

Zerri goseak, ezkurra amets.

.....

Jaunak, ordu ederra, edan eta etxera.

Amaitzeko, gertakizun bat:

Esne saltzalle bat, Donosti'ra omen zijoan, Bertan, eta Santa Katalina deritzaion zubitik barrena zijoela egundoko aize kolpe arrigarri bat atera nunbait eta gure esne saltzalleari, soiñean zeraman lerogarri edo esklabiña aidean eramen eta itsasora erori omen zitzaion. Esnea ondo bataitutakoa saltzen zuelako-edo, esnesaltzailleak bi eskuek gerriari elduaz orrela omen zione Orra! Zerk ekarri, ark eraman!, nera esklabin ederra!...

LEKUONA'TAR PILAR'EK

AMERIKATARRAK ETA EUSKEREA

«Ua euskerea ludi zabalera». Itz oneik lendik entzunak dira gure aberrian. Baiña bere abotsaren garrantziya iñoz sakonkiro astertu bakoa da. Biar ba'da emetik aurrera, itxartuko ete gara euskaldunak?

Euskerea, gure ama-elea, iye illian dago. Eta ilten ba'da, emen bizi garan euskotarren erruz izango da. Egikera au jazotekotan, iñok ez dausku azketsiko iraunbako egunetan.

Zenbat gizaseme eta alaba dira, eusko lurrean bizi arren, euskerarik ez dabiena erabilten eguneroko zeregiñetan? Eta zenbat geyago gara, izkuntza oneri, biar daben itzal eta anditasuna ez dautsagunak emoten gure egiñetan? Zoritxarrekoa benetan olan jokatuten dogun euskotarronena.

Atzerrietako gizonik ospatsuenak, euskerearen ikastaroak egiten dabiltzaz, jakiñeziñean dagoz nondik datorren izkuntza onen sustrai eta enborra. Noren anaya dan: zeiñ elegaz daukan kidetasuna. Baiña alegin guztiyak illunean geratuten dira. Eta jakitun onein azken itza, auxe da: iñongo eleakaz ez ba'dauko ezelako artu-emonik euskereak, ez ete da izango lenengoko gizonaren itza gizadiaren jayotzan? Euskerearen etorrera ludi onetara, izadi izkutuan dagon altxorra da.

Gaztedi ederra amerikatar ikasleena Arantzazu'n. Berrogei ta geyago ziran neska-mutil eta zarragoak ere. Lau aste luzean egon ziran, Aizkorri eta Urbia'ren magalpean, euskerea ikasiten etorrita lurralde areitatik. Asaba zaarren abotsak deituta.

Jayotzaz Ipar-Amerikatarrak izan arren, odol eta sustraiz eusko semearen semeak ziran. Euskerea eta Inglandarren izkerea erabilliten ebienak euron aoan. Baten batek bai ekien kastellanos be. Bost edo sei iparraldeko ikastola nagusiak ordaindu eutsoezan ikasketak, Oñati goian, eta arantz-onantzeko ibiltaldiyak «beca» bidez. Eta eurok autortu dauskuenetik, ango jaurlari nagusiak txinditza ugaria emon ebala, euskaldunak dagozien lurralde areitan idaztitegi eder bat sortuteko, aldayen guztiyak ikasi dagiyen Euzkadi'po edestia ta bizitza.

Bilbao'tar Jon, amerikar irakasle argia zan talde onen zuzendaria. Eta Rementeria'tar Miren ikasle goi-maillakoa, idazkari. Biok euskaldunak. Jatorriz, Jon jauna, getxotarra; eta Miren andereiñoa, gernikarra. Euskera gozoaren jaubeak.

Bai izan dira euron artean, Norbert Tauere'n antzekoak, euskerearen izkutuak eraginda etorri diranak. Bi emakume polit, japondarrak: Georgia-irlandar bat; eta Holandar, Rudolf de Rijk, beraganatuta daukana euskerea, guk baiño be, askoz obeto ta xamurrago.

Ikaste guztiyak dira biarrezkoak gaurko egunetan. Zuben onu edo ejenploa, gure artean be, lagunak izan biar leuke. Eta olan ikasi euskerea.

Amerikako anai euskotarrak, ikasi, ta ibilli ludi zabalean zuben odol mintzaeragaz; eta ez aztu iñoz asabearen lurralde atsekabetuagaz.

Agur ta zorion danori.

URKIDI

FERRETERIA UNCETA S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18 **E I B A R**

GAZTE

ZERGAITIK EUSKERAZ? II

Euskara,
Ialgi adi plazara!
Bertze jendek uste zuten
Ezin eskriba zateyen;
Orai dute porogatu
Enganatu zirala
.....
Bertzeak oro izan dira
Bere goien gradora;
Orai ura iganen da
Bertze ororen gainera
EUSKARA.
Oraidano egon baiz
inprimitu gaberik
I engoitik ebiliren
Mundu guzietarik.

Detxepare'ko Bernat'ek 1545'gnean idatzitako bertso onek naiko ete dira euskeraz egiteko, edo ta euskeraz idazteko?

Egalak aztertu nai dodaz; baiña zertarako? Suster bat aurkitu gura dot, gure idazle zarren artean. Zergaitik idatzi eben gure lengoak euskeraz, erderaz, gazteleraz edo prantzezez ikasiak izanik? Zeozer izan eben orretara jokatzeko. Ta orra or, Detxepare'n arrazoiak. Naikoak? Ordurako, ta berarentzako bai beintzat. Bakoitzak bereak ditu gauz bat onela edo beste era batera egiteko. Ezta gizarte bat naiko norberetasuna ukatzeko.

Suster orren billa nabil, neure euskalzaletasunari erantzuteko. Biotzez maite dot euskera: lenengo neure aitamen izkuntza ta nire sorterriaren izkuntza dalako be; bere bidez bete nebazan umearoko nere egarri ta abarrak. Beragan betetu zan nere adimena ta bere lenen urratsak. Ta gero nere gizon muiña bere bidez landu da.

Detxepare'ko Bernat gure lenengo olerkaria da, olerkari idazlea, ez edonor gaiñera, goienetarikoa baiño, Ikasia. Berea da gure lenengo liburua. Berea gure euskerarentzako abestia:

EUSKARA DA KANPORA

ETA GOAZEN ORO DANTZARA

Sarreran esaten dauan bezela «miraz nago, Jauna, nola bat ere ezten asayatu bere lengoaje propiaren faboretan euskaraz zerbait obra egitera...»

PELLO

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 18
21-15-07 urrt.

BILBAO-5

GABA

Eguzkia gorde da. Bere eguneroko eginkizuna bete ondoren, an urrutian, mendi gaillurretan baiñon aruntzago, kiñu egiñaz agurtu da. Ain zuzen, gure goraberekin gabiltzala, gure betiko estuasun eta larriekin bildurik gaudela, gu oartu gabetanik gorde da.

Eguzkiaren izkutatze orrek, ludi zabal eta aundia ez argi ez illun utzi du.

Illunabarra dabil ordea, dena illun gelditu ez dedin, burruka bizian. Ez argi eta ez illun orren burrukak, gizonen begietako ikuspen arrigarriak ekartzen ditu. Illunabarrak gaiñera, zenbait oroipen sortzen ditu gizonaren biotzeen...

Burruka orrek ordea, gutxi irauten du illuna bereala jabetzen da. Gaba beraz nagusi.

Ixiltasun aundi bat sortzen da gabean. Gabean, zakur eta katuan oiu eta deadarrak, egunez baiño nabarmenago sumatzen dira; ba-dirudi beren larriuneak, estuasun geiagorekin bildurik dagoztela.

Kalean ez da serenoa besterik ibiltzen, noizik bein moskor bat apika, balantzaka, bere etxea ezin arkiturik. Etxeetako leioak itxita. Jendea lotan, ametsetan.

Kai ondoan bizi danari txaluparen deadarrak, zerbait adierazten dio.

Ol edo pabrika baten inguruan bizi danari, makinen ezin ulertu ditun alkarizketa zorrotzak nabariko ditu.

An mendian, baserrian, belar orlegi, zugaitz tente eta ixiltsun paketsua sentituko du. Noizik bein txakur baten zaunkak esnatzen dula.

Gabean, egunez baiño geiago pentzatzen degu. Zenbat aldiz oroipenez bildurik gaudela, lo artzen degu?

Batzuek, gabean lo egiten dute. Besteak berriz, lana.

Gaba guztiz sakona da, argituko dun egunaren zai, itxaropenez beterik dagon gizonarentzat.

Ordu batzuk igaro ondoren, oso gutxi, illuna egun argiak baztertzen du. Ori orrela gertatzean, berriro ere eguzkiak bere azalpena egingo du.

Edo nork daki, apika, zerutik eudiak egingo dun bere agerpena.

GOIZEKO ZAZPIRETAN

Kolpe
tiki
xamurrekin, jo nuen atea.
Eta atea etzan ereki.
Kolpe
sendo batekin, bota nuen,
eta barruan ez nun
iñor
arki.

.....

Dirua, orlegia da.
Dirua, urdiña da,
dirua, marroia da,
dirua, txatarra da.

.....

Amaika aldiz entzuna.
Noiz etorriko da eguna?
Zurekin egoteko, kutuna.
Ez ba'zera etortzen,
ezer ez dut lortzen,
joango ba-naiz zaartzen.

.....

Gogoa dut
asmoa dut
lana dut
tristura dut
nik al dakit!

.....

Gaur goizean kanpaiak
jo dute, nere erriko elizatxoan.
Arraintzale zintzo batek
eriotza arkitu duela itsasoan
adierazteko.

.....

Lanak izerdia ematen du
nekea
estuasuna
burruka
eta... ogia?

.....

Galdezka
iru
ordu luzean
erantzun
sinple
baten
billa.

.....

Zazpi gerala
eta zazpiak, bat.
Bat gera eta
ez zazpi.

.....

Gaba zergaitik dan illun
Eguna zergaitik dan argi
Biotzak zergaitik miñ
Buruak zergaitik izerdi
jakiteko,
Ez jun gizonangana.

.....

Lurrean etzanda ikusi det,
maindire zuriekin ametsetan,
ene gizon baldarra.
Kalean zear, txakur tiki bat
txuri beltxez margotuta,
oso polita baiña... ankutzik!


.....

Ama begira zazu
leiotik kanpora.
Eta konturatuko zera
ni bezelakoak asko direla.

.....

Txoriaren abestiakin
esnatu da gizona,
baiña gizona ez da
konturatu ere.

RAMON ZAPIRAIN



KONTU KONTARI

Or datoz Pedernales'kuek!...

Umetan ta bai gazte denporan, beti izen naz argala ta sikue. Oiñ, ostera, argaldu nai eta eziñ ezelan bez.

Argalak eta sikuek, beste batzuk pe ba-zien. Zenbat arnasa estu-estu ordu pasautekuek gaiñera. Urtien, urtien, gure eskolara Pedernales'ko «sanatorixo»tik gizon batzuk etorten zien, eta onek gizonok argal ikusten ebezen umiei paparra zabaldu ta «telepono» lako gauza bataz biotzan «takadak» ta bularren laiñuek eta abar artzen zitzuen... Gero makalak eruteko ustien euron etxe nausire, osatzeko eta sendotzeko osasunori.

Gure bildurre ezan izeten makala, ez. Edozeiñ paper saltzaille edo maixuan lagunen bat erbestetik agertzen ba'zan, guk, argalok, ague bete aixiaz, arnasaik barik, belarrixok berotu eskuokiñ gorri-gorritzeko, ta an egoten gintzen geure kolore bizi-bizixekiñ, gogor plantan, arek gizonak ez deitzegarren «teleponara»...

Olako egunetan, egun erdixen, jan orduen maixen, gure amak, belarri gorrixok ikusiez, esateban, barrez-barrez:

—Zer, Pedernales'kuek gaur be?...

ASTOKRATZIA:

Markes de Poltzikoseco
Konde de Artukolauke
Baron de Txupatalos

Zenbat bider onako izenak guk, umetan, esan doguzan. Beti, erbestetik aurkituko gizonak...

Karreradunek, liburudunek... eta emengo diru apurren ataratzailliek eurok.

Zer dala-ta, orrek, ez-izenok?... Ba, alan:

Poltzikoseco, utzakin etorri, ta betetako dezioz eta asmuz bizi dan gizona.

Artukolauke, poltzilluok bete orduko, edozer. Tartera azal-otzetik, lapiko berora eldue ezkero, ba, orixe, edozer jan, edozer eran...

Atzenez, Txupatalos, poltzilluok bete ta lapiko berora eldu orduko, bastar guztixok txupa ta zurrust...

J. J. ARRIZABALAGA,
«MARKIÑA»

ONA ta RAM

EZNEAK
ZUK
ONARTZEKOAK
DITUZU

Alkar-Izketan

LOTSABAKOKERIA DALA-TA

—Gaur Peru, bidean etorkizunatzaz buru-austen etorri nok.
—Ta zelan ikusten dok ba, Manu, gure etorkizuna?
—Oso baltz; onan ba'goazak ustelkeriak ondatu bear gayozala, uste yoat.
—I ezaz ba, betaurreko baltzakaz gauzai begiratzen yautsoena ta zergaitik diñok ori?
—Ez dok irakurri, Madrid'eko epaikari nagusiak, oituren nasaikeria dala-ta esan yoana? Ez dok ikusten izparringiak gai onetzaz esan yabena, irakurgai, zine, yolas-toki eta edozein tokitan lotsabakokeria zabalduaz yoyala?
—Ori izparringiak esan bearrik ez yagok, gazteen artean eta ain gazte ez diranen artean lotsabakokeria zabalduaz yoala ikusteko. Begiak zabaltzea naikoa dok.
—Bai, gauza barregarriak ikusteko yayo gozak izan be. Neskatillak mutil agertugureak eta mutillak neskatil, zer edo zer esan gura yok. Beintzat, gauzak goikoz bera yarri dozakala.
—Ori, bear ba'yok, buruarinkeri bat baiño ez dok izango, ta batzuetan zerbait geitxoago be bai, batek ba'yakik non ta zelan ibilten diran eta noiz etxeratzen yoazan.
—Lotsabakokeria munduan beti izan dok, baiña «dotsorra» izaten zuan eta burua eskutatzen alegintzen zoan; gaur barriz lotsabakokeria «dotsa barik» ikusten yoagu, ta gizartearentzat orixe dok kaltegarriena.
—Ta, txarrena ez dok ori, askozaz txarragoa dok oitura txarrak galerazoten iñor ez asartzea. Ez yakiat aginpidea yaukienak, agintari, guraso ta gizartean eraginpena yaukienak alegin geyago zergaitik ez yaben egiten.
—Alperrikoa dala esaten yabek, eta eurak andiagoak esango yautseezanaren bildurrez... ixillik itxi bear...
—Ori oindiño txarragoa dok. Ixillik itxi ezkero lotsabakoak eurak yagozala zuzen uste izaten yabek-eta.
—Ba, lotsabakoak lotsadunak baiño zarata geyago egiten yaben erriak, etorkizun onik ezin leikek itxaron. Orrexegaitik esan yauat gure erriaren etorkizuna baltz ikusten yoadala.
—Berari bakarrik begiratu ezkero alantxe dokala yirudik, baiña Yaungoikoak zainduko gayoazan itxaropena ez yoaguk galdu bear. Ba-kik ba, gizon bakotxak lez, erriak be amiltegian yausteko arriskuan aurkitzen dozakanean, euren olde edo instintoz atzera egiten yoela, ta oldozten asita, zuzentzeko bidean yarri.
—Egia dok gizartea zuzentzeko gure lanak naikoa ez dozakala ta gora begiratu bear yogula, baiña... geuk al yoguna egiten ezpayoguk... Yaunak alperrai ez yautsela laguntzen...
—Orduan auzoak zer egiten yaben begira egon barik, bakotxak al yokana alegintzea izango dok gauzarik onena, alan besteak be lanari ekiteko bizkortu egin leikezak-eta.
—Ori dok bidea izan be, onerako guztiok batera yokatu ezkero, «onaren ugaritasunagaz txarra ito» egingo geunkek, Paul deunak yiñoan lez.
—Batzuk esaten yabek alperrikoa dokala elegin egitea, euren burua zuritzeko nonbait.
—Onaren alde egiten danean alperrik ez dok egiten iñoiz be, yakitunak esan yoenez lurbiran egiten danik ez dok galtzen aldatu baiño.
—Nik alperrik lan egiten yabenari auxe erantzungo ñeuskiok: «Egiten yabenak oker egin leikek, baiña ezer egiten ez yabena beti yagok oker.
—Naiko izango dok, berandu dok-eta, agur!
—Agur...

URIGOITIA

Aragitegi Zaarra

Nire zerrendako bostgarren kale onek, beste seirak lez, Erribera kalean asiera daualarik, Bilbo'ko Eleiz-Nagusiaren enparantz zabaltxoan bere amaiera argitsua dauko; toki oni Jagoba Deunaren zabaldegia deritxo.

Bere izenaren jatorria, izen berberak dirauskunez, oso erreza da. Bertantxe gizaldiak dirala, Bilbo guztiriko Okela-toki nagusia ba-egoan, ta andik ur-urrean ala ere arakindegia edo abere-iltokia bere bai. Ori ta guzti toki garbi-garbia ei zan, ba, eguneroko kale garbiketak Zamudio'ko Ataurrean egoan ur-askatik ekarririko uragaz egiten zituen. Zamudio'ko Ataurreko urtegi au, egundo eguneko bilbotarrentzat txit miragarrizko zera benetan, erderaz diñogun Pontón de Bolintxu edo Oillargan aldetiko urekaz aldiro-aldiro beteten zan. Emen egoan dorretzarrak beko aldean espetxe bat eukan, garago Magdalena izanturiko gaxotokia, ta gaillur gaillurrean (oin be Begoña'tik Santo Domingo'rako bide ertzetik goiko aldean eta esker aldera edo Begoña aldera begiratuaz bardin samarrak ikusi leitekez) dalako ur-mael aska ori. Gaurkoan, dana edeslariak dirauskuenez, San Juan izentaturiko Elizea eregi ei da bertantxe.

Kale azalpenagaz jarraiturik, asieran, Barrenkale ezik, beste guztietan lez, leñargiko Dorreetxeak aurkitu oi ziran; beiñolako euskaldun danak, dakigunez, aiton-semeen agiria berezkoa baieben. Kale ontako etxe-dorreen izenak, argibideak dirauskuenez, Markiñatarrenak ta Etxebarriatarrenak ziran.

Aspaldi bateko sal-erosketak begiztatu ezkeroz aragi-okelearenaz gaiñera, onegaz zer-ikusi aundia dauken abere-motzailleak (ardi at aritodunak batez be), ale saltzaille dendak, pirtxil-kinkail dendak, aulki egilleak ta bizargilleak daurkiguz ziur-ziur. Ez zan Artekale ta Dendategi'ren bizitasuna ikusten. Kale bakotxak bere zer-berezia eukan ala ere. Gaur, gauzak obetuaz, lengoak itxi barik, ia guztiriko dendak idoro geinkez. Esate baterako pattartegi, oiñetako saltzaille, berogaillu, apal, ontzitegi ta eskaratzeko bearrezkoak diran tresnak opa daroaskuenak, ta abar.


Azken oneitako ospetsuena, nire adiskide miñ eta euskaldun sutsua Urrutia'tar Alberta dogu. Guztiriko argonizi, txirrist-krisaillu ta dindilikariak an dozuz; bateon bat gaurkotu ba'da, bera dozu egiz, ikusi bestela Erribera kale ertzean ipiñi dauan saltoki barri arrigarria, erakus-agertokia kale bitara doalarik, kanpotik sartu-miñ ezin-alakoa damosku.

Itxas bestaldeko janarietan ta guztiriko jatekoetan, Bilbo ta Bizkai guztian oso ezaguna bera, Mariano Romero izentatu geinke. Erredixak saltzen bikaiñena Kanales etxea. Eunak eta miesak saltzen Artezu; Artiba Etxebarria jaun euskalizale ospetsuana ta El Norte, S. L., onetan be, nire ezagunena J. Lopez, abizena alde batera, euskerazale fin-fiña. Bere seme biok Lanegi nere ikastetxeko ikasleak izan ziran. Bardin, kale ontan ikasle izanikoak, Arza neba-arrebak, Suc. M. Dermit etxeko jabearen lobak. Onek eunak ez ezik, guztiriko gauzak saldu oi ditu. Ots, bitxiak, pirtxilkinkail zerak t. abar.

Gozokietan, Favorito ta Jauregui doguz. Aharketa ta lokarri saltzaille L. Barcena nire aspaldiko lagun erdelduna. Kale onetan erdeldun geiago doguz, ala ta be geienak euskaltzaleak. Berogarri, urrutikuskiñ ta tximist-indar gaietan apartekoa Argiro etxea dogu. Jabeak, ni lez, Arregi abizenezkoak dira, oso lagunak eta polito euskeraz berba dagunak eurak. Aurrez aur, Serantes etxea dago, onek be tximist indar tresnak saldu daroaz.

Beti lez ta tamalez, asitakoa amaitu bear. Oraindikan kale biren azalpena eskeñi bear dautsuet. Geroago ta pozago daragoiot lan ontan. Asiz urri, baiña tarteka, Jauna lagun, burutuko dot. Ea ba Barrenkaletarrak laster zuekaz nozue. Bien artean euskera ikasten alegindu, bestela entzutekoak entzun bear dozuez, AGUR'etik. Urrengorarte ba, ta agur!


ARREGI'TAR JOSU



Gozari ta azkariak

Ascao, 12 - 24 90 89 Urrtz.
BILBAO

GURE MENDIAK



Ez dago esan bearrik be, mendigoizaleak mendi guztiak ditula atsegin, baiña bardiñean neurriz goitikoak nayago izaten ditu geyen baten begi-ikuskeketa zabalagoa dabelako, txikerragoak baiño. Mendi txikerrak, bosteun edo gitxiagoko mendiak dira, baiña, ba'dira Euskalerrian, beste mendi andiakandik urrun dagozalako edo itxas-basterrean aurkitzen diralako, mendi ikusgarriak ikuskizun bikaiñak dabezanak eta ezaugarririk asko dabenak be; oneitariko bat da gure argazkian ikusten dan Ereñozar, obeto esanda, gure ustez, Ereñatzar, gero esango dogunez.

Ereñotzar mendi erpiña, edozeiñek dakian legez, Kortezubi, Arteaga'ko Gautegiz eta Ereño erri garbi baketzuen bitartean aurkitzen da, Lekeitio'rako bidean eskoma aldera. Berak dituan goiti neurkiñak ez dira asko, laureun eta berrogei ta zazpi dirala. Goiko gaillurrean daben zelaikunatxuan, basatxonu bat dau, Mikel Goi-gotzon, Zaindari dabela. Erti aldetik, ez dau zer-ikusi andirik baiña ba-dau bere edestitxua; Iturriza edeslariak dirauskunez, bazaleizatxu au izan ei zan Ereño erriko eleza nagusia lez 1625'gn urterarte. Ta orretara izanagaitik-edo, erriko ildegia be or izango ei-zan. Inguruak arakatu ebazanean illobiak aurkitu ebezan eta orretariko bat txandontxu orretan sartu ta eskomatara barruko aldean aurkitzen da, tailletutik jausten dan ura, bide berezi baten bitartez, bertaratutzen dala. Illobi ortako urakin garbitutakoan legen ta beste azaleko gaixoak osatzen ei-dira; ta egixa izango da, bertara lenengoz joan nintzanean egarri izugarriaz eldu nintzan ta, ain ur garbi ta otzotza ikusi nebanean, eta enekian lez bere edestia, txurrutkada eder bi egin neutsazan eta bikainki asetu eustan urdailla, eroan neban abopekoa gozatsu jateko eran.

1404'gn urtean idatzita dagoan Bizkai'ko edestiak dirauskuenez, baseleiza ori aurkitzen dan toki ortan berean gaztelu bat aurkitzen ei zan, iñongo areriyok artuko ezin ebelakoa, baiña, euskotarren, Ganboitarren da Oñaztarren arteko burruka odoltsuak zirala-ta, guda-gazteluak eratsi ebazanean bera be eratsi ei-eben eta bere tokian txadona jaso.

Ereñotzar'ek ba dau bere inguruetan beste zer-ikusirik be; or dogu bere Iparraldean Ereño'ko errian bertan Bizkai'an diran nabarri (marmol) gorrizkerik onenak, ta, Egoaldean, mendi aldapen asieran, Euskal-errian dogun aitzulorik ospetsuen bat, Santimamiñe izenaz ezaugarri egin dan Basondo'ko aitzulo ikusgarri ospetsua; Arantzadi, Eguren (Goyan Begoz) eta Barandiaran'tar Joseba Mikel euskotar jakintsuei eskerrak eusko semeoi ta ludi guztiari erakutsi ederrak emon dituan arzuola.

Guztiok ikusten dogunez Ereñotzar oso erpiña da, urrindik su-mendiaren antza dabena, ez dago orren aztarrenik, baiña ori ta guzti be lenago iru alderditik edo geyagotik igoten yakon; bidezior bat Gautegiz'etik zuzen aldatz erpiña gora; beste bat Basondo'ko aitzulo ondotik zearka Sorkaldera joanaz, eta, gaur, igon leikena, ez dogu uste bestetatik igon legikenik; Ereño'ko erritik Gaztelu basatxeraiño pizkat jatzi ta bertatik gora doan burdibidetik gora, piñu artetik goi aldearte, burdibide ori eskomatara utzi ta bideziur garbitik goiko txadontxura.

Mendi au garraztaz eta zugatzez estalduta aurkitzen da, geyen bat basati ereñotzaz, naita arantza, gurgutx, sasi ta beste garraztarik ugari izan guztiz sarratuta mendia jarten dabenak. Gure ustez ortik dator bere jatorrizko izena; Ereñotzar (Laurel-abundante o abundancia de laurel) eta ez Ereñozar (laurel viejo) ereñotzak beti izango ziralako bertan zarrak eta gazteak, eta gitxiago batzuk idatzi daben lez Ereñosarre, era guztietara txarto idatzita dagolako, naita alderdi artakoak orretara esan aintzakotzat euki barik «z» ta «s» izkien bardingentasuna.

Eusko mendigoizalea! ezagutu geure mendiak!

ALTUNA'TAR JOSU

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

MATXITXAKO (II)

TOKI IZEN BIDEAK

Itxas-lur-mutur onen erpiñak MATXITXAKO aldeko lurrak zati bitan lagaten dauz eta zati bateko eta besteko toki-izenak ainbat eta ainbat dira, idaz-lan labur onetan ezin geinkez ezetara guztiak sartu, ingi-orri asko bearko litzakez, baiña geroago azalduko doguzen jazokunak aztertuteko bear-bearrekoenak ezarriko dira:

SARTALDEKOAK: BASORDA mendikeko itxas-ertzatan PORTUME daukagu (izen onek diñoskun lez «Portu-txia» edo pai-txitxo bat da eta geroago azalduko dogu MATXITXAKO'gaz daukon zergaitia), gero BASIGO-BAKIO, ERKOREKA, ARBAILLU, GAZTELUGATXE, AKATX, ERMU-GOIKO, ERMU-BEKO (izen oneik «EREMUTIK» sorturikoak diraz, eta itzok agertuten dausku, lur-aldeok, antxiña-antxiñako, EREMU-lurrak zireala, bapartadeko itxas-lur ertzak).

IPARRALDEKOAK: Itxas-lur-mutur buruan jagiten dira Laterriak egiñeko Dorre bi, be-aldean bata (dorre-zarra), goirago bestea (dorre-barria), eta inguruetako lurrak MATXITXAKO izena artu dabe dorre biok egiñazenetik onutz, baida aintxiñatiko izenak oraindiño ezagututen dira, eurotatik batzuk aitatuko doguz: DORRONDO (itxas-argi zarra dagon tokia), ARTETALLE (itxas-atxak), BEKO-ETXE eta ERDIKO-ETXE (biok ERMU etxeagaz artzaiñak egiñeko basetxeak), SEKUDI (itxas-argi barriko lurraldeak).

SORTALDEAN: PLANTXIE (itxas-atx zabal antzekoa), ZILLARRI (itxas-atxak), POTORRO-ARRI (atx-tontortxo bat, ur-egaztiak gelditutea dan tokia), MATXITXAKO (itxas-ertzako lurra, aintxiñako untziak ekatx-egunetan ostenduten ziran kaiantzeko atxartea), baita beste askok deituten dautse MATZAKU eta beste ainbat izenakaz, izen txorta guztiok MATXITXAKO'tik sorturikoak, GIBELPE (itxas-arritza, TXANKIL-ATXIE) Bermeo'ko arraintzaliak gogotan daukie aitz onetan, arraintzu baten yazoriko gertakizuna eta gure arraintzaliok sarritan abestuten dabe:

Gregorio Zelaya,
Patroi famatue,
Txankil atxien
Etxadie egiñekue;
Traiñe zatitut,
Zerura begire,
Bota salabordue
Eta perzebek barrure.

Gero, ainbat itxas-ertz, lur-solo eta etxe-izenak lagarik, daukaguz: ARETZATXUTONPOI-ANDI, TONPOI-TXIKI, TALA, eta BERMEO uriko izen pilloa aitatu barik, daukagu MATXIKORTA, aintxiñako gizaldietan toki ospetsua, MATXITXAKO ize, nagaz eta beronen Edestiagaz zer-ikusi andikoa, eta IZARO ugarte ipar-aldeko aitzerpiñari ATXIKORTA deritxo.

Iru toki-izenok oaez goznartuten ba'doguz, benetan, eurok azalduko dauskue artu dogun arazoaren egiztasuna: MATXITXAKO toki-izena oiñarria lez da, beronen lenengo itz-zatia edo aurrizkia MATXI da, eta atzizkia-TXAKO (sortukerako aldietan -TZA-KO), bigarren toki-izena MATXIKORTA emen ere MATXI aurrizkitzat eta —KORTA atzizkitzak eta irugarren toki— izena ATXIKORTA (emen M aurrizkia galdua da, baiña argi dakusgu MATXIKORTA'tik artua dala), Iru itzoren lenengo zatia MATXI da, gero, atzizkitzat -TXAKO edo TZA-KO lenengoak eta bigarren eta irugarrenak KORTA.

Benetan, iru toki itzok, agertu nai dauskue antxiñako gizaldietan itxas alde oneitan «bizitza garratza, artegatasun itzala eta naibakoren bat» jazo zala, eta ez batzuren eretxiz, MATZ-itz zatiak lilluratuta MASTIAK ete dirazen itxas-lur-legorrok, baiña «matz-arazoari» laga-ta, ekin dayogun gure ikastaroagaz itxas-alde onein argitasuna aurkituten, eta onetarako sakondu daigun lur-zalla andi onen berez yagokan IZAKEREA. (J. l., jarraituko da).

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

IDAZTIAK

Sasi-Batasuna

Txikia baiña mamintsua dan idaztia, Labayen'dar Andoni jaunak eskeñi dauskuna. Ba-daki Labayen jaunak zelan gudakatu. Aurrez-aurre etsai-antzo daukanari gizonki begiratzen dautso, adizkidetasunbidez bostekoa estuten dautso, alde bietako izkilluak ondo aztertzen ditu eta ausarkiro urtetzen da guda-zelaira. Guda-zelaya EUZKEREA da, gudaketa-gaya zorigaiztoko H.

Naiz ta nai eze H. ori iruntseragin gura dauskuenai, begi-begiz begiratzen dautse eta zor yaken lotsa ta maitasunaz agurtu. Irakurri zer diñon 5'kn. ingoskian Mitxelena jaunatzaz, 4'gn. ingoskian H. ori azurretara sartu gura dauskuen gasteetzaz eta batez be 28'gn. ingoskian Villasante Abeari egiten dautsazan goraltzak. Baiña gizon dan gizonarentzat adizkidetasunaren goitik EGIA dago ta Labayen jaunak aupada entzunkorra egiten dautse H. zaleoi.

EUSKALTZAINDIAREN agindua zala H. ori erabiltzea santsoka ta irrintzika esaten euskuenai argi ta garbi diñotse: Ez dago orrelako agindurik. Euskaltzaindiak auzi ori erabilli eban, bai, Arantzatzu'ko batzarrean; baiña «aitortu bearra da an ez zirala iritxi guztiak ez entzun ez irakurri» idaztitxu onen egilleak lenago jakinerazo euskun lez. (Ikusi Karmel. 2.1970). Berauxe esan dauskue beste euskaltzain askotxuk, ots: Estornes-Lasa'tar Jose'k (Diario Vasco-n 1972-garillak 19). Intza'tar Damaso'k KARMEL'en (1970-4; 1971), eta beste batzuk. Ez dakit negargarri ala barregarri ete-dan gure artian, H. dala-ta, sortu dan iskanbilla, niretzat lotsagarri da beintzat. Gure inguruetako izkerak, H. ori oguzten ez dalako, erbestetu nai dabenean, guk edo gure tarteko batzuk, H. ori oguzten ez dala-ta be, indarrez sartu nai.

Gai onetzaz diñardudan ezkero, aspaldi neukin daruadan zoztortxu bat argitaratu nai dot. Arantzatzu'ko batzarra zala-ta, ZAZPI ALDIZ jarrayan BATASUNA idatzita banandu euskuen idaztiño EUSKERA BATASUNA EUSKERA'n 28'gn ingoskian auxe irakueten dot: H. Letra ori bi bokal berdinen artean erabiltzea dugu BEHARRENIK, urrutiegi gelditzen bait dira BESTELA bata bestearengandik ahari ta ari, mahai eta mai... *Ezin dot ulertu. Edo nik ez dakit zer dan* urrutiegi *ez eta zer dan* bestela *edo ni itsututa nago neure adimenean. AARI'ren* a biak *h. barik urrutiegi ta h'kin urrago? MAAI'ren a biak, h barik (bestela) urrutiegi ta h'kin urrago?*

Ezin dot ulertu, ezin dot. Laguntzailleari eskerrak dagiketsadaz.

Bitartean irakurri Andoni Labayen jaunaren Sasi-Batasuna.

URRUTIA'TAR
GOTZON M. B. S.

Japandar Bategaz

Joan dan Dagonillean, London'eko nere egotaldian, Erriarteko Katoliko Ikasleen jaupari ordezkoa egiteko, ia laterri danetako gizatalde gazteagaz aurkitu nintzan. Lau edo bost japandar be ba-ziran, ta onetariko batek nabarmendu ta gogoa irabazi eustan. Osakintzan aldazka dan ume atzeratuak zainduteko terapia deitzen yakona ikasten egoan London'en.

Mutil gazte, argi, burutsu, jakinzale gogor eta, japandarrak izaten diran lez, iraunkor ta benetako beargiña bera. Askoren eritxiz, japandarrak ez dirala ondo artuak izaten esan arren, mutil au lagunkoi ona zala-ta, beragaz adiskidetasun zintzoa egin neban. Jakiña, bakotxaren aberrietako gauzetzaz berba egin genduan.

—In the first place, let me introduce myself = Lenez, nere buruaren aurkeztea egiten itxi egidazu— esan eustan. —Nire izena Sadao Yamada da.

—Ba, ikusten nozun lez, ni jaupari katolikoa. Gogokoi laguntzetarako etorri naz ona. Ta, zu, kristau-katolikoa zara?

—Ez naz oraindik, baiña kristau-katolikoak begikoak dodaz. Zu, euskotarra ta euskalduna zarala esan dauste, ta Euskalerria, bere antxiñatasun eta batez be, bere izkuntz ederragaitik asko yat atsegin. Euskal izkuntza, japondarrenaren antzekoa da. Emen London'en naizenetik, nere lagun on bat euskalduna da: Aitor Mendizabal, Bilbo edo Donosti ondoko mutil gaztea. Onegaz, Euskalerri ta onen izkuntzari buruz itz egiten dot sarritan. Berak, zeu, Mr. edo Fr. Felix Letona, aitatu daust.

—Eta zer dakizu zuk euskotarretzaz?

—Gauza asko eta onak.

—Zelangoak eta zetarikoak?

—Beste gauza askoren artean, euren kondairea, aintziña-antziñako adiñera, arrialdira, stone-age, gorazkatzen dala. Izkuntzea, antxiñenetarikoa, Europa laterrietakoengandik osoro bestelangoa...


—Olan da. Euskerea ta Finlandar izkuntzea Europa'ko «ugarte izkuntzak» dira.

—Zuenak, gure japondar izkuntzearen antza daukola uste dot.

—Bai, ori be egia da. Berba batzuk bardin esaten dira: adibidez, pitxarra. Eta «besterekio esakuna» (relative clause) danean, azpizkoz gorako egituran ipinten dira.

—Olan ba'da, arerioak sortuko yakoz euskereari...

—Bai, ta ez gitxi. Bat izendatuko dautsut: Joaquín de Tragia, erdelduna. Onek idazlari lagun batzuekin, idazlan andi bat egin eta argitaldu eban: euskerea ez zala aiñ antxiñakoa agertu ta adierazi guraz, ta bere edertasuna ta obekintza izateak ez dirala ainbeste andietsi ta goratu bear. Euskaldun jakitun



zintzo batek, Astarloa jaunak, euskerearen aurkako orrein idazlana ezeztu eban idazti eder bategaz. Entzun euskerearen alde Astarloa'k esaten dauskuzan gauza batzuk:

«Euskerearen itz-atalak, zoragarrizko egikerea dabe. Euskeran ez dago ta ez da izan bear itz-atal bidebakorik. Ziurtasun, egiantzeko ta ezbai-zalantzaren izaera-ezaugarriak beste izkuntzetakoak baiño obeak dira. Aditzaren aberastasunak eta itz-ondokoak miragarriak dira, ta jakintsuen gogoeri eragiten dautse. Berba oneik: eguna, illuna, argia, gaba, eguzkia, illargia, gizonen gogamenak, gertagi orrein aurrean, zeaztuak eta eredutuak izaten dira. Urtea, udea, uda-burua, itzak, urte izate berezkoa antzeztu ta azalduten dabe. Euskera izkuntzeak amabi illeei emoten dautsezan izenak, negu-buruan asten zirala urteak adieraziten dabe».

«Euskal-izkuntzea» —diñosku Astarloa'k bere idaztiaren azken-gaiñerakoan— jakituntzat bearrezko laguntzaille indartsua da oraindik, eurentzako diran ezkutuak, ezagungaitzak eta ezkutukiak argitzeko. Izkuntza askodunentzat, izkel jakintzaren ur garbi-garbiak edateko ezin ustuko urdun iturria. Ta filosofu gogoetalarientzat, bertatik atera daian jakintza sakona, Egille gorenak egindako izamenaren idazti idigia».

—Ondo esanda. Orrelango gauzak, euskerearen alde, irakurrita daukodaz. Gure japandar izkuntzeak be, ba-ditu orrein antzeko edertasun eta aberastasunak. Ezin siñestutekoa! Aberri biok, Euskalerria ta Japan, ain urrunduta euren artean jeografiz, ta alan be, izkuntza antzekoaz baturik!...

Europa'ko laterrietatik ibilteko aldiona izaten dodanean, Euskalerrira elduko naz lenengoz, bera ikusi ta geiago ikasi ta aztertzeko asmo onean.

LETONA

"ITZ-LAUZ" LIBURU BERRIA

Zaarrez berria, bigarren argitaraldia bai-dakust begi aurrean. Olerkaria ezezik, euskaldunetan prosista onenetako bat zala ikusteko, ez dezu bere orrietatik abitu besterik.

Labayen euskaltzain jaunak diogunez, Liburuaren itzaurrean: «Lizardi» prosa tankeraz yori-aberatsa eta apaiña zan».

Onetzaz gaiñera, ba-zan gizon argi, garbi ta maltzurkeri gabea. Orduan ere ba-ziran eztabaidak euskaltzaleen artean, ba-ziran asmoak, ba-ziran usteak. Eta eztabaida, asmo ta uste oietan gizonki azalduaz gaiñera, euskera ederrez azaltzen ditu ain irristakorrak zitzaizkien gaiak. Eztabaidak ere ba-dirudi bere esakeraren ederrez limurtuta damaizkigula. Eta eztabaidak ez diranetan, aren doaiak, pozetara erakartzen gaitu euskaldunok.

Eztabaida batean, bere aurkalariak «Larreko» zanarekin naspiltzea-edo nai duala induritzen zaiolarik, garbi mintzatzen zaio. Aurten «Larreko» zanaren jaio zaneko eun da irugarren urtea ospatzen dalarik egokia iduritzen zait, idazle naparrari nere omenalditxoa eskeiñi nai diotalarik, pusketa osoa emen ipintzea: «Ondoz, etzenduen «Larreko» agurgarria ta ni elkarren aurkez-aurke zertan yarria. Orretxek geienbat erantzupen au egiñarazten dit».

«Larreko»ren iritziak maiz txorrotxegiak iruditzen zaizkidan arren, gizonez maite det; idazlez, ederresten; abertzalez, goratzarre dagiot. Bikaintasun oiez nere eskuak ez ukitzeko diñan goitua ez ba'lego ere, ille urdiñarenganako itzal samurra bear nuke aski. Aren aurrean bai, atera dezakegu txapela biok, eta beste zenbaitek ere».

«Berrizaleak, euskalki-borrokalariak, batez ere bizkaitar-gipuzkoarren artean naspilla sortzea maite zutenak ez ziran ez falta. Gai oni buruz, bera gipuzkoarra izanik, «Lauaxeta» zanaren alde irten zan, esanaz: «Azken-itz bat oraindik. Besterik zerbait ikusi det zure idazkian, nere ustez okerrekoa. 'Lauaxeta'ren 'Bide-Barri,ak' ez omen dezu irakurri, bizkaierakoa ote-dalako, ta zuk gipuzkera baizik ez dakizulako».

«Bizkaiera, gipuzkera, lapurdiera, guziak dira euskera, ta euskera eder. Guziak bear ditugu mamimamiko. Ta zuk —ainbeste euskaldunen beren aldean «berrizale» etsi zaitzateken orrek— etzenduke, nere ustez, diozuna egin bear —zere burua apalegi jartzen dezu— ta ezago esan bear. Bati bost ipiñiko niozke, bizkaierazko idazkirik ulertzeko zu baietz izan gauza. Ala ba-da, irakurri nai ez ba-dituzu ere, etzazula beintzat agirian esan. Orrelako ateraldiak ez datoz ongi gure arteko pakerako, ta, ondoz, euskeraren onerako ere».

«Lizardi» ri beste arazo batek gau askotako loa kendu zion: Euskal Egunkaria. Guk guda-oiñetik eta ark zerutik ikusterik izan genuana. Madrid'eko izparringi batzuek, gure arazoetan sartu nai izandu zuten, beren idazkietan: «Nolakoa euskal egunkaria?» Ez zan txepel ibilli erantzuten. Gaur -egun guk gure siñismena ukatu dezagula dabiltzan batzuek komeni dalako jakitea, ara emen: «Beste baipen edo afirmazio bat, Madrid'eko 'El Sol'en eta Donostia'ko 'La Voz'en gure egunkariatzaz agertu diran iritzi batzuei erantzunez».

«Gure egunkaria KRISTAU garbia, KATOLIKO zuzena izango litzake, guri, ortan ari geranoi, dagokigun eta barrenak agintzen digun bezelakoxea, Sanchez Guerra'k esango aal lukenez gure egunkaria egin nai degu, ez iñorena. KATOLIKOTASUNAREN zuzenbidea edo ortodoxia, bat bakarra da, ta bakar ori izango litzake gure egunkariaren zuzendari. Baña gure egunkari ori ere esan bearra dago KATOLIKO GALTZADUNA egingo genduke, ez ELEIZ-ORRIA. Katolikoz gañera, gure egunkaria euskozale sutsua izango litzake, au da, euskeraren alde ta euskaldunen eskubideen alde beti garbi yokatuko lukena, naiz politika-alderdi gabea izan. Ta orain, nik esaten dizutet: iñork lurbira, osoan egunkari ori baño ezer zeatzagorik, ezer margodunagorik, ezer «más definido» asmatu aal-ba-lezake, yaso beza eskua».

Eta sabindiarrok «ika»-euskeraren etsaiak gerala idatzi izan duan euskera-ikasle, ta ika-izketan ezjakiña dan «ukroniano» orrek, ikusi eta ikasi dezan euskera ederrez idazten ta ika mintzatzen, ta ori siñistu dioten «alienatuei» zatitxo au bakarrik eskeintzen diotet, ortik aurrera ika izketaren alde zenbat egin oi degun ikasteko, borondate-ona baldin ba-du, beiñe pein. Ara «Lizardi»k: «Atarian illun, ta leioan txingor tuntuntotsa diranean, goxoa oi dek etxeko sutondoa. Ala bart, gurean. Ta etxebarrutik aur-zarata ba'lebil, areago; ordun, adiskide, suaren garrak argiago ziruditek; dardara giarragoz ibilli zebiltzak, goia miaztu-bearka... I mutilzar gogortua ago, ta ez bide-dek azken ori siñisten. Erruki aut, gizona! Etzak parrerik egin».

Aukerako gaiak aukeran esanka dauzkatsu liburuan. Azken zati au bezin ederrak ugari datoz. «Lizardi»ren ITZ-LAUZ au euskaldun gosetienaren naia asetzeko duin da. Erosi beraz, ez zera damu izango.

UXOLA

«ITZ-LAUZ»
Editorial EDILI
Donosti

Gorbea'tik

Orain dirala aste batzuk gure asteroko izparringi ontan idatzi neban, esaten, zelan izan ziran mendi ontako aterpe edo etxetxorik geienak ate ta leioak apurtu ta irikiak. Argi ta garbi agertu neban, ba, ikusieziña ta gorrotoa gure mendian doguzan bake-tokietaraiño eldu dirala.

Egiak min andia sarritan egiten daula antxiñako esaera da, eta, alan da izan be. Norbaiten gorrotoa ikusi izan dot! Astialdien bat izaten dotanean mendi ontaraiño igon eta berton eguna igarotea niretzako zoragarri da.

Ez dot uste iñori kalterik egin dautsadanik; arrokeririk iragarri askotzaz gitxiago. Eta idaztea arrokeria ba'da, Agiñalde'ko ate ta leioetan nire aurka idatzitako itzak zer esan gura dabe? Ez dauste min andirik egin an irakurri nebazan itzak —txarto ezitakoaren itzak— gaur egun ziurrik dakitalako noren eskuz egiñak izan ziran. Nire egiakaz mindua izan ba'zan, ba, nor errudun?

Menditik sakoneraiño jazoten diran gauzarik askogaz errizale garen guztiguztiok minduta gagoz eta, goiko gaillurrean asi ta beraiñoko guztietan anaitasuna ta alkarrenganako begirapenaren bearrean gara, gure Zeanuri'k eta inguruetako mendiak gorengo mailletan, lenago lez, jarrai dagien.

ANGOITIA'TAR BIKTOR

SAN MIGUEL

Euskal idazti ta eresmitzak. Gaur, atzo ta beti-betiko Euskal-gaiak bakarrik eskeintzen dituan etxe bakarra.

Nere aldetik ezertara beartu gabe, zuen euskal-jakintza arloko bilduman dituzuen idazlanen berri jakin nai nuke,

Izenpena:

.....

Izena: .....

Abizenak: .....

Bizi-bidea: .....

Urrutizkiñak:

Lantegian: ..... *Etxean* .....

Zuzenbidea: .....

Erria: ..... *Erkia:* .....

Alameda de Urquijo, 60, 5.º, izq., Bilbao, 11'en degun gure lantokira bialdu arren zerzelada onek.

Martín Aldazabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI
GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ERRIETAKO BARRIAK

Berriz

OPOR-ALDIAK.—Amaitu dira aurtengo opor-aldiak; jentea oso nekatuta etorri ei'da, bearrean baiño nekatuago. Ortxe dago uts aundia: opor-aldiak atsedena artzeko izan bearrean, geiago nekatuta gelditzeko izaten dirala askorentzat. Orretarako, askozaz obeto norberaren etxean gelditzea eta inguruetako toki baketsuetara urtetea, aize osasuntsua artuaz. Osagille baten eritxiz, auxe da biderik egokiena: bazkaria artu ta inguruko leku aukeratu batera joan, eguna patxadaz eta nasai-nasai igaro eta illuntzean barriro etxera. Kirioak edo nerbioak baretzeko be orixe onena. Opor-aldiak ez dira gorputza ta espiritua nekatzeko, onei atsedena emoteko baiño. Gure artean, zoritxarrez, okerretara artzen asi dira gaur egunean. Tamala!

MURGOITIO'KO BARRIAK.—Dagonillaren 5'ean eta 6'an. «Kopradia-egunak» ospatu ziran. Jaiak ondo eratuak izan ziran: Mezea entzun ondoren, abestiak eta aurreskua atsegiñez entzun eta ikusi genduzan.

Emen diardue ermitea konpontzen. Barrukaldea ederto gelditu da. Zelan egin dan? Eskola-umeak, neskato ta mutiko, etorten izan dira erriko abade gazteagaz, eta, olgetan-olgetan, baso-elizatxo guztia «pikau» dabe barrutik. Orain, barriz, ia kanpokaldea be zelan gelditzen dan. Beste ermita batzuk be barrizteko asmotan diardue. Auzuna guztiak artu bear leuke parte arazo orretan, basoeliza ederrok iraun dagien, gure aurretikoen goragarri ta txalogarri dira-ta. Bertako gazteak be ba-diardue berebil edo auto baten txartelak saltzen elburu orretarako. Berebilzozketa Dagonillaren 31'garrenean izango da, «Cupón pro ciegos» deritxonaz batera. Aurrera ba, neska-mutil eta abade, baita osterantzeko laguntzaille guztiok be!

* * *

Bere gurasoakana etorrita, Maria Zelaieta, Aizta karmeldarra, izan dogu gure artean egun batzuetan. Datorren urtean be etorri zaitezala!

Garillaren 8'an, Bergara'n, Zangitu'tar Belen eta Lasarte'tar Jose Kruz ezkondu ziran. Zorionak biotzez ezkonbarri zintzo bioi!

«Berriztarra»ren erantzunaren zain nago. Arrezkero, AGUR'eko irakurleak ugaritu egin dira. Ugaritu daitezala arpidedunak be. Emon zuen izenak AGUR asteroko au saltzen dabenai, ia berriztar guztiok euskeraz ondo irakurten ikasten dogun.

Dagonillaren 20'an, «Izarrak» eta «Iremiñe» taldeak Donostia'ra joan ziran, ango Euskal-jaian dantzatzera. Naikoa arazo dabe talde biok aspertu barik erriz-erri dantzan. Sasoia be ez makala eurona!

Egun batzuk dirala, Murgoitio'ko gure gizon zintzo, Zelaieta'tar Pedro, Bilbo'ko Geisotegira eroan eben, ondezik. Matiena'ko D. Juan Pedro abadearen aita dogu. Beste bein edo birritan be urratu dautsoe aragia, baiña ala ta guzti be gure Pedro beti aurrera. Ia noiz ikusten zaitugun barriro be San Juan'go elizpean. Auxe eskatzen dautsagu Jaunari biotzez.

Igaro dan eguenean, San Bartolome eguna ospatu genduan Miota'ko auzunan. Mezea ez zan izan bestetako alaia, gure D. Jaime iztarri zerratuaz etorri zan-eta. Abesten bera asi ezik, barriz, geu be ixilik. Alan be, San Bartolome'ra joaten zarienok, abestu egizue errimeago, batez be gizonok, zeuek gura dozuenean ba-dakizue kantatzen-eta. Esan dagiela bestela etxekandrak. Ez da egia, ala?

KARMELE

Arratia

ZUDURRA GAZITU.—Bi urteko zala Venezuela'ra joan zan, amazazpigarrena bertan betetu, sorterrira etorri... ta sudurra gazitu.

Gorbea'peko Karkabitxueta'ko basajaun Petralanda'tar Maren'en illoba ta Goinaga kitar-abeslari gazte jatorraren lengusiña dan Izaskun'i buruz nator.

Jaioterrira biurtzean bide-lagun izan zituan poz-ametsak aitita-amamaren besarteetan eta banaka batzuen inguruetan astu-bearrean izan zan, beste nor askorik (euskaldunik) aurkitu ez ebalako.

Biotzaren amets-begiz urrun-urrutietatik onantz begiratuz ikusten izan eban Erria erdel senari emana aurkitu dau, pot eginbaiñik.

Ainbatzuen zozokeriz, zeinbatzuen zabarkeriz eta aldi ontako AIZKOLARIEN marroz eta bidez arrotzaren kerizpe edo itzalpera eroanez daroagun erriatzaz (gutzaz), zer azalpen izango ete dau gure goizoillandatxoak, barrien-barriz gurasoakana biurtuko danean.

AURTENGO udaldi'an, ganorabako samarra dala-ta, kezkarik asko entzun izan dogu, gaztedia baiña zur eta bizkor gozogarriak kolkoratuten.

Baso ta oyanetan Adan eta Eva dirudiela. Ilargiak agintasunik ez daukan abarpeetan sasikeriak. Urbastarretan alkar itoten diarduen sugetzarrak ba'lira lez alkarri kiribilduta. «Progresaren progresazinoan» bizi gara.

USTELA TA ZIKIÑA.—Euskera «modernizatze kanpaina» begi onez ikusiko neuke «kanpainaleek» euskera odol-ustuteko gogoz eta asmoz izkuntzaren izain edo usan (sanguijuela) biurtu ez ba'lira.

Emen eztenkada batzuk: «Enamoratuen afektibitatean kausatua denuntzia. Maitale sensiblea akusazioz abusatua, rekursoaren pean sentimentalki defenditua, azken finean libratua. Autoritate familiaristaren magistradoan personalki pribatu kausaren inplikazio apasionatua. Poetiko personala finaren poesiatutako definitate sistematizatua».

Agur, beste bat arte.

LANDAJUELA'TAR A.

Zarautz

Lau bat urte ba-dira, leenagoko eragozpenak aaztu zirela, Euskal Jaientzat berriak sortu zituztenetik. Talde txiki bat edo bi, erri guziaren asmo-onak zapaldu nairik, jai oiek kentzeko alegin aundiak egiten izan ditugu, ta igez, jun dan urtean gogor erantzun zien erriak eta ixilduko zirelakoan giñen denok.

Ala ta ere, aurtengo eraso-aldia izan degu gogorrena. Ba-zuten, ba, zerbait orrela jokatzeko. Ta ori benetan tamala, bietarako erri osoa bildurik egin lezakena, puskatu; ta erri ori iru zatitan ebaki dutela aitortu bearrean gaude.

Beste egun baten, denok jungo giñan elizara, ta gero, jaiaren egun berean, denok berriz euskal usaiari indar ematera, eta gazteak jaikundez itxartzera. Baiñan, ez. Ez omen da euskal usairik bear, ta galtzea obe, gizarteko oitura berriak zabaltzeko. Ta orra iru taldeak:

Mezetara jun zirenak, baiñan ez jaira.

Mesetara jun ez zirenak, baiñan bai jaira.

Ez batera ta ez bestera jun etzirenak; naiz bietan izan zirenak. Denekin ondo izateko asmoan.

Euskal jaia ezin izan dute puskatu, naizta aurreko igandean, umeena ebaki ba'zan ere eguerdian, denon iritxiak bat-zirela. Ala ere, umeen jai orren ordez, arratsean «orkestina» delako oyetako bat jarri zuten enparantzan, ta an ziran minberatuak (?) barregarri, edo, min ori gutzitzeko, Getari'n aparitan alaitsu.

Aurten egin duten okerra zuzentzeko, beste benaunaldi bat jaio bearko ote-da? Zarauztarren buru onaren itxaraponean, orrenbestekoa ez dela izango pentsa dezagun.

EXTEBAN

Tolosa

SASKI-NASKI. Bai, ta poxpoliña, dirudunekin eta ez dutenekin egiña...

IMANOL Gastesi, tolosarrak eta Mendizabal'dar Mañoli zaldibitarrak, aurtxo zoragarri bat izan dute. Elgoibar'en lan eta bizi izan arren. Tolosa'n jaio, baiñan bataio-jaia Zaldibi'ko «Mugertza» baserrian izan dute. Idoia izena du neskatoak. Zorionak guraso berriei, ta batez ere bigarren aldiz aitonamondu diran nere adiskide miñ Gastesi'tar Mikel eta Goenaga'tar Pirmiña'ri.

ZORIONAK ere Zamarripa'tar Koldobika zillargilleari, Naxera'ko giroak ain ongi artu dualako.

PASAI, Bilbo. Santander, Asturias eta Galizi'tik barna itxas-ibillaldia egin ondoren, gurekin ditugu San Vicente'tar Arturo ta bere emazte Estonba'tar Axun. Zorionak ere.

ZUMAI'tik nere anai Edorta ta sendia, ta Orio'tik Bello'tar Antxon, osasun ederrarekin, orain sagardo billa dabiltza beren eta nere jaioterrian. Beste eun urteko egarria, beren sendi ta adiskidei.

FRANZIZKOTAR praille batzuk ere egan egin dute. Aita Garate'k Santo Domingo de la Calzada'ra. Aita Torrealdai ta Aita Intxausti'k al dutenera. Bijoakie, oporraren ixillean, danari ere asmamen zintzo asko adimenera.

AURTEN ere, beste urteetan antzera, Biarritz'eko bere txaletean daude udara igarotzen Uria'tar Josetxo ta sendia. Oiturako «fin de semana», udararen luzaro zoriuntsua biur dedilla.

EUSKALTZALEEN artean itz makatzak daude «Historia de Tolosa F. C.» liburuarentzat. Bere egille ta zuzendarien artean euskaltzaleak izaki, ta euskeraz itz bat ere ez dago idatzirik liburuan. Eta au konpontzeko «diamantezko eztaiak» urrutiegi. Nere barkapena ba-dute, baiñan «integroena»?

«SASI-Batasuna» liburuxka egin ba'du egin, xaltxa pizgarri batean da Labayen jauna. Bilbo'ko «El Pueblo Vasco»tik Munitibar idazlaria etorri zaio liburu onetzaz eta beste euskal gaietzaz zenbait galdera egitera. «Norbaiteri» ain xaloa zaion Marylin Monroe baiñon «popularragoa» egiten ari zaigu On Antonio. Besterik izango zan «astraktotasuna ain konkretuki ta klarki manifestatu» izan ez ba'zun.

«BAR Joxe Antonio» —«Agustín»— berrizten ta apaintzen ari dira. Len bezela, gure olerkari aundien argazkientzat ainbat toki izango al du.

ELGETA'n izan giñan «AGUR»eko idazlei, biar batean, «erresponsabilidadeak» eskatuko omen dizkigu bizkaitar idazle batek. Ene, baiñan ene! Nere beldurraren dardara!...

BAZKAL ostean artu Byass; egarri dezunean Insalus ura, zoriona datorkizu eskura.

IÑAUTERIA'ri buruz, liburu berri bat prestatzen ari da nere adiskide dan Juan Garmendia Larrañaga. Txantxoarena ez duala egingi, ba-dakigu. Zai gatxedek.

BA-DEGU aski, bai, gure saski naski...

UXOLA

Vallvidrera

OÑATI'KO «ERRIZALE»RI.—Igeldo Donosti gaiñean bezelaxe, Bartzelona gaiñean tinkaturik aurkitzen dan Vallvidrera deritzan uritxo atsegingarri ontan nagola, irakurri det «AGUR»en 50'gn zenbakiko zure erri-berridun idatzian, nere Donosti'ko bizi-lekuari buruz egiten diazun galdera.

Donosti'ra ointsu neri igorririko eskutitza nigana gabe, ostera orruntz itzulia izan dala esaten diazu, ta bizilekuz aldatua ote-naizen, alegia. Arrazoi dezu: Avenida Sancho el Sabio keleko 12'gn zenbakira aldatu berria nazu, eta beraz, orain Donosti'n nun bizi naizen ba-dakizu, nai dezunean idatzi edo ikertzeko. Eta idazlan onen bidez zurekin ari naizen ezkero, ointsu zure jaioterri kutun ortan neri jazoriko gertakun barregarri baten berri, lotsaz beterik, emango dizut:

Kataluiña'ko lurralde ontara irten nintzan aurreko eguna zan, ala bearrez. Euskaltzaindi'ko batzarra gendun Arantzazu'n egun artan, eta Zatarain jauna eta biok bertara giñan, goizean goiz, Donosti'ko «taxis» batean. Batzar artako arazoen berri ez dizut emango emendik, oi dan bezela Euskaltzaindi'aren «Prensa Bulegoak» beterik dualako zeregin edo biarkun ori; baiña bai etxerakoan Oñati'n gertatu zitzaidanaren berri ondorengo lerroen bidez:

Bero izugarri egiten zun or, egun artan; eta Arantzazu'tik Oñati'ra jetxi giñanean, Udaletxe osteko kale-motx itzaltsu batean belbilla utzi gendun, zeregin batzuk egiteko.

Gure Zatarain jaunak, Oñati'n bizi du bere amagi-arreba, ta au ura ikertzera juan zan bitartean, ni, Udaletxe aurreko arkupeetan lendik ezagutzen nuan Gozategi'runtz urbildu nintzan, etxerako gozaki batzuk erosteko asmoz... Baiña, alperrik. Oial-saloski etxe biurturik aurkitu nuan.

Gozorik gabe, esku-utsik ostera belbillera biurtzerakoan gertatu zitzaidana da, kontu polita: buruan sartu zitzaidan, belbilla, Udaletxeko ostean ezker aldeko kaletxo batean utzi gendula, ta kale-nagusian gora ta bera, beti ezker aldeko kaletxuetara begira, belbilla aurkitu eziñik nenbillela, erri-zai bat aurrekalderatu zitzaidan, eta guztiz leialki, galdera au egin ziran:

—Aizu, jauna. Zerbaiten billa al-tzabiltza, gora ta bera, emen?

—Bai, lotsa ematen ba'dit ere egia aitortu bearrak, alaxe nabil, ba... erantzun nion, beste au geituaz: —Arantzazu'tik jetxi geranean, kaletxo abetako batean, itzalean, utzi degu belbilla, ezker aldeko kale batean, nere ustez, baiña ezin aurkiturik nabil...

—Gizona, gizona!, erantzun ziran: —Udaletxe osteko eskubi aldeko kaletxoan dago, ez ezkerrekoan, zu billa zabiltzan «taxis»a, «txoperra» zurrunkaka lotan dala.

Egia! Alaxe aurkitu nuan, «zurrunkaka» gure «txoperra», lasai asko lotan, ni, pixkabat larriturik, bere billa nenbillen bitartean. Olakorik!

«Errizale» adiskidea: Aizkenez auxe dizut esango: Baldin erri zai leial ark ordez, zuk aurkitu izan ba'ninduzu Oñati'ko kalietan, tankera artan, kontu polita izango zenduala «ZELETA OÑATI'N GALDU» idazburuaz «AGUR»en irakurlieri kontatzeko...

ZELETA

Usansolo

BATASUNA EZBARDINTASUNEAN.—*Norberen Erria ezagutzeko, urteko une guztiak onak ba'dira, egokiena arein artean, ude aldia da. Jakiña ba, udan oporrak izaten dira sendiko langille, irakasle ta ikasle geienentzat, ta atsedena be bearrezkoa dan ezkero, ezezagun tokietara ibilli-aldi luzeenak ta ikustaldi garrantzitsuenak, aldi onetan egiten doguz. Ta joan etorri oneitan, zelako ezbardintasunak ikusten doguzan geure Erri barruan, bere on ta aberastasunerako.*

ONDARROA.—*Lendik ezagututen genduan. Erri jatorra benetan, euskal zaletasuna ganezka dala. Baiña nondik jatorko Erri bateri bere izakera, bere biztanleegandik baiño? Ta egi ori ezin Ondarroa'k ukatu. Bere semeak emon dautse daukan jatortasuna.*

Jatortasun onen irudi bat, Tere. Alarguna gazte-gazterik, iru seme eder beragaz. Eziketa on bat izan dagien, goizaldian etxeko lanak bete ondoren, lanean, Ondarroa'ko kaira. Barriro etxera umeak zaintzeko ta janariak gertatzeko: onen atzean kaira barriro, euran ogibidea ori dala-ta.

Au edo bestea dala, gaba-erdi oera joan baiño len. Onelako ardura ta neketasunean dagoenari, zer eskatu leio, samintasuna baiño besterik? Baiña ez da Tere, eragozpen ta ostopoakaz ikaratutekoa. Alaitasuna ezagutu da beti aren etxean, ta euskalzaletasuna aixe-zulo danetatik. Eziketa bene-benetakoa bere semeentzat, gure Erriaren nortasuna lenengo maillan ezarriaz.

LEKEITIO.—*Erri eder, zoragarria, uda aldian batez be. Sotiltasuna; udeko egunak Lekeitio'ra igaroten etorten diranen artean ez ete dau onek Lekeitio'ko nortasuna galduko.? Gure Erriko bigarren irudia ikusi daigun.*

«Sonoro». Arraintzalea ume umetarik Ezizen ori gazte aldian artukoa. Lekeitio'n egoan abotsik ederrena egun areitan. Laguntasun barik, meza osoa abestuteko lakoa. Emendik ezizena, «Sonoro».

Baiña onek ez eban arrotu ta eguneroko ogia, itxasotik ekarten eban. Urteak joan urteak etorri, legorrean gelditu bear. Bere gastaroan, norbait za nean, arrokeririk ez, zartzaroan apalkeririk bez.

Ez dau bere Erriko sotiltasunak makurtu, ez bere zaletasuna galduazo. «Sonoro» udako biztanleentzat, bardiña, Erriko semeentzat: Arraintzale zintzo ta euskaldun jatorra.

ELANTXOBE.—*Euskalerri'ko toki guztietatik, guretzat beintzat, danak politak izan da be, Elantxobe ipiñiko geunke, geure etxean Jaunaren Jaiotzarako gure arteko Erri bat aukeratu bear izango ba'geunke. Naiko esan dot.*

Rufino ta Marian'en jaiotzerria. Baiña jaiotz-Erria izan arren, iges egin bear eguneroko janaria irabazteko ta, itxas-ertza itxirik, lur barrura jo. Emen sustrai barriak bota, ta emen izan dira jaio ta eziak euren semealabak.

Euskalerri dana maite, baiña Elentxobe kutunago. Sendi ospetsu ta ezaguna gure auzunean, baiña arrokeri ta apalkeri barik, euren jaiotz-errira udan, ango etxe ateak zabaldurik bai arraintzaleentzat, baita oraingo auzokoentzat be iñor itxi barik.

Euskalerri maitea, ezbardiña baiña bakarra, agur.

ATXUTEGI'TAR JULENE

«LARREKO» (III)

EUSKALTZALE

Gure mediku ospetsua euskaltzale suar bezin isilla izan zan: zalaparta gutxi baiñan eragite aundikoa. Euskaltzale oso-osoa. Gaztetandik zartzaro arte (1869-1949) larogei urteko adiñean zendu bait zan, eten gabe euskerari opa izan zizkion txolarterik maiteenak.

Nork daki bizitzaren buruan zenbat eta zenbat ordu eskeñi zizkion euskerari? Idatzi ta argitaratu zituan lanak ea konta eziñak dira. Eta guztiak araka al ba'genitza arriturik geldituko giñake aien ugaritasunez. Aleunka eta aluenka! Bost bat sei aldizkarietan argitaratuak ikusten ditugu: *Eskualduna, Napartarra, Euzkadi, Euskal-Esnalea, Argia, Gure Herria,* abar eta bar, Guzietan gure izkuntzaren etorkizun eta aurrepanak emanten zion kezka nabaitzen da. Eta biotz-samiña Naparroa'ko euskeraren eremuak txikitzen ari ziralako.

Mugaz bestaldeko euskaldunetaz ere maiz mintzatzen zan eta «*Eskualduna*» Iriarte-Urruti'ren lanak irakurriaz zenbat ikasi zuan aitortzen du. AXULAR euskal idazle gorengonetzaz jotzen zuala esan bearra dago. Aren GERO liburua ezagutu ta irakurri zualarik ez zuan beiñere eskutik utzi Axular'en euskeraren edertasunak lilluratu bait zuan betiko. Aren iturri gartik edaten zuan egunero.

Esaera zarrak erri xearen ezpaiñetatik biltzen leiatzen zan orietan ikusten zualako gure arbasoen jakitatea: «guk uste baiño aberatsago dena». Ez zan kultura berriaren etsai, naski, baiñan aitortzen zuan: «letradunak dugula euskera oinperatu; eta letradunok bear dugula goratu.

Eta ez erderaren arabera, euskeraren moldeetara baizik.

Toki izenak arretaz jasotzen zituan baiñan etimolojia ta esan naietan arras zur eta zentzudun genduan. Arazo zailla zala ikusirik zegoan eta gure artean askok edozein irudimen txoro arinki egiatzat artzea ez zuan batere gogoko. Lakoizketa'ren landare izendegia ondo ikasirik zeukan eta gai guzietan oiñarri ta urratz segurutik ibiltzea legetzat artua.

Onek ez du esan nai eleder eta ipuiñak maite ez zituanik. **«Euskaldun biozduna Mexiko'n»** istorioa zoragarria da, gertakari itzala, garratza batzuetan baiñan mintzairez aberatsa eta pozik irakurtzen dana. Zortzi atal ditu nobela labur baten antzera josiak eta guzira Larreko'k idatzi izan zituan luzeenetakoa, onek lanik geienak egunkari ta aldizkarien neurri xumeetan ageraazi bait zituan.

«Euskaldun boizduna Mexiko'n» ipuia gaiez Irazueta Jon Andoni'k idatzitako **«Bizia garratza da»,** nobelatxoaren antza ba-du Ameriketa'ko eremuetan euskaldunoi gertatuak. «Atsekabeak atsekabearen atzetik...» tolosarrak azken itz bezela gogora arazi zigunez.

Larreko'ri omen egin nairik «iskribatzaille motz onek 1969'garren urteko Zeruko Argia' ren banako batean lantxo bat eskañi zion.

Alabaiña, aldi artan eskaintza baliotsuena Eusebio Erkiaga bizkaitar euskaltzain argiak EGAN aldizkarian (1970) agertu zuana izan zan.

Zortzi orrialdeko lan luze eta eder batean «Larreko» poliki azaltzen digu: «Beltzez jantzia kapela ta eskularruak ere... alkandora ezik. Bizar txuria murritz. Erkiaga'k aipatzen duan Mutriku'ko batzar artara ez nintzan joan baiñan egun artan gure etxean unetxo batean gelditu zala ondo oroitzen naiz.

Orduan Larreko'k 66 urte izanagatik pozik eta gogoz biltzen zan gazteekin. Andik pixka batera Erkiaga gerratean zaurituta gero solas-aldi samurra paratu zuten alkarrekin Iruña'ko karrikan. Aiek egunak!

Erkiaga'k ez dauzka aazturik baiñan gertakari zaarretara joanez ederki aipatzen dizkigu Larreko ta Lizardi, zar eta gaztearen aidegoa. Iritzi ez berdiñekoak iñoiz; ez zegoan ez zertan aurrez-aurre jarri.

Orregatik Lizardi'k Larreko'z esan zuan: «gizonez maite det, idazlez ederresten eta abertzalez gorasarre dagiot». Urrezko itzak, benetan.

Kirikiño'k Bilbo'ko egunkari giartsu batean zuzentzen zuan saillean gazte askoren aertan Larreko zan idazlerik umotu ta zaarrena.

Amaika kronika idatzi zituan Iruña'n hospitalean buru-belarri lanean ari zala; edo udako oporralditan atseden eta osasun billa Pantikosa aldera joan oi zanean.

Erkiaga'k sakon aztertzen du aren euskera garbi, osotu ta errikoia. Aren errizaletasun barru-barrukoa. Idatzirik utzi zuanez «euskaltasuna izateari dakokio... eta ez dago gure baitan aldatzea». Egitazko fededuna Orreaga'ko Andredena Maria'ri jaiera sutsua zion. Oraingo jendeek alako siñismena izan dezaten eska dezaiogun, burua apaldu, biotza agertu ta belaunikaturik... Au bait da ark emandako aolkua.

Amaitzeko nik Bilbo'ko astekari ontatik, ark idatzi zuan eran idatzirik eta aren ispirituari jarrai nairik agur bero bat igortzen diot... Aren bidetik noa, ez bait dut ikusten oberik.

ANTONIO M.ª LABAYEN

SAR-ATEA

(Jarraipena)

Eta zure nobela barru ta azal aztertzera ezkero, gaiari buruz, errikoi errikoia dela esan bear, eta euskalduna oso: baserri bizi, ikazkintza, meatz lan, maitemindu, erriko sendakaillu, sorgin, auzo lan, on egite, obari, baserri erretze, senar emazteen kezka ta istillu, bizimoldeari aurrera eragiteko buruko miñak, muga zaiñak, gau ta eguneko esturasunak, alkar eraso ta burrukak, bide egite etengabeak, eta abar, Zure idaztian auek denok datozkigu ederki opilduta. Sikoloji aldetik giza barne ezagutzaillea gotor agertzen zatzaigu, ta euskal gaietan jakitun. Ez al dizu onek txalorik merezi?

Euskera aldetik, umetan ikasi zendun amaren magal zulo beroan darabiltzun izkuntza. Alderdi ontatik so eginda ez duzu, ez, akatsik: guztiz ederki igitzen zaizu luma, errez, jori, errikoi, esakun dotorez pitean bein zipriztindua. Ontatik, beraz, zarta jotze etengabea merezi duzu, esku biekin egiña; irakur, bestelan, ondorengo atalok eta esaidazu zer derizkiozun. Au idaztea! Au gaiari guna ateratzea! Au euskera, gure euskera bikaiña! Jakiñez, naiz ez jakiñez, mordoillo zaleok, ikas dezagun idazten baserritar onengandik. Ez diñogu, ba, sarri baserrira jo bear dogula euskeraz mintzatzen eta idazten ondo ikasteko?

Gure erri jakitunaren agotik arturiko esaera bizi pertxentaz, parlantzuan bezela, txukundu ta apaillaturik daukagu liburu osoa. Ona batzuk: —Bera zan akulu ta ezten.—Jakiteak ez du ogirik eskatzen.—Maitasun erneera; naaste geiegia ontzi baterako.—Orduraiñoko neke guziak utsean utzi bearra.—Aizeak darabillena ez duk beti egi osoa izan oi, askotan ez egi erdia ere. Garitza aundia dagoanean, esan oi da: —Atzamar birekin ogia jan bearrean zerate noski.—Akullu bete lur baiño etzeukaten lantzeko. Adiskide miñak zirala esateko: —Ba dut adiskide leial bat, begi betazal gerana.—Azkazala ukolondotzat artzea izan zen guzia.—Txapela bete legor ez zitzaien gelditu. Izerdi bitsetan zoalako: —Ari legorrik etzeroan soiñean...

Ona zatiño bat, ez arian jasota, gauzak nola margozturik dauden ikusteko aiñakoa: —Arriz itxia zuenezko eskorta barrendik burua altxa-ta, ordu artan nor zitekean susmoz jarri zenerako, ongi erroturiko gazte luzeka bat, zerbait galdu bai litzaikion gisa, bazter bietara begira, gaiñik-gain zeartatzen zen bidexka medarrean barrena, berbertara urbilduaz zetorkion.

Eta beste au: —Aurreratuz zijoazela rik, or-emen ardi moltxokak zinzarrots nabarmenak atereaz bide inguruetatik igeska zijoazkien, eta auen jeikierako furi gaiztoarena ezik, osteroan txintik ez zetorkien belarrietara. Oazurtza'tik Sandrati'rako arribidean sartu zirenetik, ordundixek asi zen mendi ezpaiñetara kirikaz illarian zijoan illargi txostuak aurreratuaz zekarkian argi erraiñu gaixokia.

Izkera bizi-bizia duzu geien bat. Noizik-bein ba-liteke illun xamarra. Euskal joskeran ez duzu iñoiz ere laprastik egiten; aldatz-beera datorren gurdiaren leuntasuna duzu ortan, berezkoa noski. Eguzkiaren argia ere beti duzu aratz eta garden, zoztorrik jartzen ez ba-zaio bederen. Edu ortakoa da zure lumatiko etorria ere; goxo ta apatz, euskal mamiñezko!

Or ingurumari bakarrik erabiltzen diran itzak sartzen dituzu. Ederki! Datoztela oiek euskal liburuetako orrietara... «Zurrin», «pizar», «zinzartu», «talderatu», «pardeldu», «arrendu», ta abar.

Zuk zeure arima jarri duzu. Idazlea izatez nolakoa dan, idaztitik ageri oi da geintsu. Nobela osatzen duten pertsonak gizonki oretuak daude, lautik irutan beintzat. Alkar-izketa bizkorra, euskaldunak bere-berea duen filosofi-goxo ta maltzurkeriz loretua. Aldiz aldiz, bear bada, ez diozu garrantzi geiegirik ematen orri, ots, alkar-izketari. Eta ba-du. Gaur ori eskatzen dute irakurleak, alkar izketa ugaria, azkar eramana. Neskatil batzuk ezagun ditut nik nobeletan datorren alkar-izketa bizkorra besterik irakurtzen ez dutenak. Urrengorako badakizu.

Eta onekin naiko. Sar-ateko itzok luzetxo daude; baiña zuk, ba-dakit, olakoak ere barkatzen dakizu. Liburu au Legazpi, zeure erri inguruan jazotako gertakariz ornitua damakiguzun ezkero, legazpiarrak bitez, batez ere bertako seme jator orrek, asti-orduetan, guztion onerako osatu duzun liburu yaukal onen irakurlerik beiñenak.

AITA ONAINDIA

BEIN BATEAN LOIOLA'N

Aurtengo udan Loiola'n gogo-jardunak egiten egona naz. Eta bertan burura itaun au etorri yatan: Iñaki deunak, euskalduna izanik, gauza onik emon ete dautso Euskalerriari? Askotxo dira ezetz diñoenak; baiña nire ustez geienak ez-akiñagaitik edo itaun ori ez dabelako sakondu.

Beste gauza askoren artean ona emen Iñaki deunak gure Erriari emondako onura batzuk: lenengo ta bein bere santutasun andiagaz lurbira guztian gure Erriari entzute andia emon dautso. Bere iñarkun-liburaugaz euskaldun batek ludi guztian zenbatu ezin besteko gizon ta emakumeak kristau-bide zurrera eraman ditu; berak sortutako Josulagunen Lagundiagaz, bai ikastetxe Nagusietan, Erdiko ikastetxetan, misiñoetan, langilleen artean, teoloji-irakasketan eta abar ikaragarrizko lana egin dau gizadi ta Eleizaren alde. Esan geinke lareun urte oneitan Josulagunak izan dirala ia aurrenengo, Elizako lanetan. Eta guztiak dakie lan izugarri au euskaldun baten bultzakadeagaz egiña dala. Ondiño bera bizi zala (gauza oso jakiña da) Euskalerrian kristau ikasbidea irakatsi ta eleizberbaldiak erriari euskeraz egiteko eleizgizon gertatuak urri-urriak zirala. Ta utsune lotsagarri ori betetzeko aita Araoz eta beste josulagun euskaldun mordo bat Iñaki deunak gure errira bialdu zituala.

Berberak Jaunagana guztiz biurtu eban deun Xabier euskaldun sutsua, mixiolari andienetakoa ta Euskalerriko oorerik aundiena, ta ezagutuena mundu guztian. Iñaki deunaren ainbat seme, euskaltzale ta euskal langille purrukatuak izan dira; esate baterako. Larramendi, Kardaberatz, Mendiburu, Olabide, Pierre Lhande, Basabe eta abar. Gaur berton ere or ditugu Muxika, Goikoetxea biak, Etxeberria, Zabala... izen guztiak ez esatearren.

Josulagunen artean egin ditue euren ikasketak, Lauaxeta'k, Aitzol'ek, Jauregi'k, Orixe'k, Etxaniz'ek, Zaitegi'k, Ibiñagabeitia'k eta beste askok.

Iñaki deunak berak, edo bere semeen bitartez, gauza asko ta asko egin dituala Euskalerriaren alde jakiteko naikoa da esan doguna. Baiña geiago oindiño: or Errezil'go mendi basotsuen kerizpetan, Izarraitz aitz-tontorreko aize otzak laztanduta, Urola errekatsuko uraren murmuragaz soiñututa, Iñaki deunaren jaiotetxea ta bere inguruan egin diran etxe eder ta zabalak ikusten ditugu. Ba-ete dago iñun gogoen alde or beste lan egiten dan tokirik? Or dituzu baita ere ikastolak, euskal-irratia ta zerbait josulagun bertan euskeraren alde lan ta lan. Eta guzti ori Iñaki deunari zor dautsagu. Orregaitik antxiñako abesti zar baten erara nire biotzean onako au sortzen da:

Bein batian Loiola'n
erromeria zan.
Ama bat ikus neban
pozez dantza-dantzan.
Ama ori zoritan
euskera ama zan,
egola il-zorian
guztiok ustetan.
Baiña Iñaki'k bertan
semeak lanean.
Ilterik ez-ezean,
bai odol-zaiñetan
indartzen egunotan
euskera Loiola'n.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

Monako'n euskal-illetak

Aita Jose Bizkarguenaga il da

Monako'n izan da.

Udako eguzkiak beroen joten dauan illean; geienen gogoan jokoa, jolasa eta itxas-ertzeko bustialdiak ez dabillen egunetan; egunerokoen orrialdeak dantzari, kantari edo zine-emekumeen izenez beterik etozen aldian; lekutxo bat izan da, eta ez txikia, Bizkai'ko praille baten izenarentzat: Jose Bizkarguenaga il da.

Egun gitxi batzuetarako bere lanak itxita, atsedenalditxo bat artzearren bere senide ta adiskideen artera etorren. Eta andik asko urrindu baiño len, aurreko kotxe bat jota, eriotza aurkitu dau bidean.

Monako'n bizi izan da azkenengo iru urteotan. Eta ez genduen uste izango ain ezaguna zanik, ainbeste adiskide eukazanik bertan. Ez genduen usteko, batez, bere, Niza-Monako'ko eguneroko baten bere argazkia aurkituko genduanik, bere bizitza eta eriotzako barri emonaz: Dima'n jaioa, Bilbo'n eta Gazteiz'en ikasi eta abade egiña, 1966'an Frantzia'ra eta 1969'an Monako'ra igaroa. Oso maite izan ei dabe, bai monakotarrak, bai ara lanaren billa joaniko ainbeste kanpotarrek.

Eta alako illetak izan ditu. Monako'n bizi ziran beragaz beste iru praille euskaldun. Bizkai'tik joan ziran lagun eta senide batzuk euskerazko mezea emon eben lenengo, illaren alde. Gero amaikak inguruan illeta nagusia. Eleizea dana beterik. Gotzaiñaren ordezkoa, mezaemoille nagusi, eta beste amaseiren bat praille ta abade, Monako'ko eleiza guztietakoak. An da ango protestaeen artzaiñ egiten dauana be. Gotzaiña kanpotik da, baiña bere atsekabezko gorantziak bialdu barik etzan gelditu. Danetik, ekumeniko-itxurazko mezea: mezako kantak gergorianoz (an oitura dan lez), enparaua prantsesez, eta Ebanjelioa, euskeraz bere bai. Monako'ko eliza baten euskera lenengoz entzuten zanik ez dogu esango. Oraintsu izan ei da bertan ezkontza bat, euskeraz dana. Baiña guzurrik esateko bildur barik esan geinke ez dauala an gure izkuntzak Bizkarguenaga'ren illetan baiño entzule geiago izan.

Urrengo egunean Niza'ko egunerokoak luze samar ekarren illetaren barri; eta aita Bizkarguenaga zanaren goragarri, mezemoille nagusiak itzaldian esanaren muiña: uste bako eriotza orrek biotz askotan eragin eban miña, eta illak Monako'n egiñiko lan ederra. San Mauro alkartearen kapillau ei zan, «Pocolari» deritxon alkartasunaren taldeko, katedralean bertan askotan organu-jotzaille. Baiña, danen gaiñetik, Bizkarguenaga aitaren irribarea ei zan nabarmenena, eta olantxe, neke-miñik andienen erdian be, alaitasuna, itxaropena ta poza sortzen ei ekian.

Orregatik edo, meza ondoren, ainbat arpegi illun ikusi genduzan, eta ainbat begietatik negarra urtetan, illaren gorpuari azken-agurra egitean. Euren artean, Baiona aldeko euskaldun bat. Illerrian, illaren anai bati euskeraz itaun bat egin geuntsanean, erdi negarrez erantzun euskun inguruko andra batek. Arriturik nor eta zan andra ori, gero jakin genduan mugaz bestaldeko euskalduna zala.

Niza'ko goizeko egunerokoaren berbakaz amaitzen dogu biotz-biotzez laguntzen dautsgula euren ezbear eta atsekabean Monako'ko praille karmeldarrai eta emongo Bizkarguenaga'tarrai, eta goyan bego Jose zana.

ALBISTARI

AGUR

III URTEA
55 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - IRAILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ITXARON

«Ludiko erri guztiak euren azkatasuna lortuko dabela uste dot». Berba oneik, orain amar urte dirala, esan ebazan, geroa aztertzean trebea zan gizon on batek. Eta ez egoan ain oker bere eretxi onetan. Ordurik ona ainbeste aberri izan dira euren buruen jabe egin diranak, batez be Aprika ta Asia aldean.

Mailla orretara gizadiak eldu bear dau.

Ez dago ondo gizon batzuk besteen izardiarekin bizitea, baiña asko tamalgarriagoa da erri batzuk beste batzuen menpean egon bearra. Eta au, zori txarrez, sarri jazo da, kolonikeri gorrotagarri, ugari izan da. Baita, Erdiaroan eta urte batzuk geroago gudea bide dala erriak menperatu dira. Eta ori onartzen zan. Baiña gaur erri bakotxari bere jabetasuna emotera dago gizartea. Eta ainbat erritan egin da ori. Iñoz gauzak oker urten dabe, ez daigun aiztu Biafra'ren menperatze negargarria.

* * *

Jazoera oneik bide dirala, gizarte zuzenago bat egingo dalako itxaropena sortu da gure barruan.

Bearrezkoa itxaropen au, iñoz galdu bear ez doguna. Eta eredu diran jazoerak ikusirik, ba ditu oiñarriak gure itxaropen onek.

Baiña itxaropena ez da besoak batuta eguzkiak erretako ogiari begira egotea. Ez. Egizko itxaropena langillea da, burrukalaria da. Erriak euren buruen jabetasun au irabazi ta lortu egin bear dabe.

Zer egin orretarako?

Beti, al danean al dana. Lenengo erribizitzea indartu: izkuntzea, oiturak, jakintzea, erri-ezaguerea... Au beti egin bearreko lan bat da eta erritar guztiak egin bearrekoa.

Erri nagusien aldetik arerioak izango ditu lan onek, baiña iñork ez dauka orretarako eskubiderik. Gizon bakotxaren biziak itzaltasuna bear dauan lez, errien bizitzeari be itzaltasun au zor jako, berezko legeak eskatzen dau.


Itxaropenak berak eskatzen dausku ba, lan au egitea. Eta ori Erriaren biziari eusteko, bere nortasuna aldeztuteko.

* * *

Baiña itxaropena, erri batzutan, agortu egiten da, eta beste bide gogorrago batzuk artzen dabez euren jabetasuna lortzeko. Iñoz, egia esan, alkar-izketaz eta odolik ixuri barik lortua izan da ori. Baiña geienetan, eroapena agortu danean, gudara ta odol ixurtera jo dabe gizonak eta guda bat sortu dabe. Gogoratu Arjelia, edo Ego-Amerikako laterririk geienak edo Afrikakoak. Egun negargarriak izan dira egun orreik. Sarritan eldu dira euren elbururа, baiña iñoz, baita, euren ibaiak odolez gorritu ondoren, len baiño menpe gogorrago bat artu bear. Gogoratu barriro Biafra.

Itxaropen bizia sortu bear dabe ba, asieran esan dogun berbeari eutsiaz, erri menperatu guztiak. Geroko gizarteak ez dau menperatze ori, kolonikeri ori, onartuko. Eta «Ludiko erri guztiak euren azkatasuna lortuko daben» aldi pozgarria ta zuzena etorriko, ekarriko dogu, geure itxaropenean lan egiten ba'dogu.

AGUR



Gotzon Errian

Urte bi igaro dira, Gotzon aiskidearengandik banatu edo ez-banatu giñan ezkero. Igaz, Urrillaren 17'an Maiñu'koa, gogoan betiko: Amaika ta erdiak ziran, Meza esateko ordua. Ta ordu erdi lenago, bidebarriz-bidebarri, ta solorik-solo, zearka, edonundik jendea agiri zan.

Aurreko urtean ikusi genduanak, egi aundia agertu euskun anai onen eriotz ostean. Igaz barriz, egia sendotuta geratu zan. Egia, zuzentasuna ta ona zabaltzen dituanak, maitasunaren emoitza artuko dau ondoren.

Eleiz barrua ta ingurua jendez beterik egoan, Kristo'ren eta bere erriaren etxe ondoan. Zer nai eben? Zer esaten eban erri mamintsu ta gaztedi zoragarri arek? Gauza bi alkartzen zituan: Euskal erria ta gizon baten zuzentasuna.

Jendeak bizi nai dau. Norberari dagokion bizia. Egia ta zuzentasuna emoten dituana. Maiñu mendiko igarlearen buru, biotz eta agoan orixe aurkitu eban. Pozaldian eta arriskuan, gizonen lagun izan zan beti, egiaz argi egiten. Egia zatitu eziña ta illezkorra da, ta euskaldun egiak euskaldunak argitu bear ditu. Euskaldun jendetza arek, il-kutxa gaiñean ipinten dan lora txorta aundi bat irudian. An, artzen zan usaiña ta entzuten zan eskaria, estu-estu eginda, alkartasun maitasuna zan. Gizon on bateri erantzuna. Euskal-erria ta bere Egillea, gure lurra ta zerua, bat egiñik ikusi genduzan.

Meza amaieran, abots baten batasunez guztiok agurtu genduan. Agur jauna. Agur. Agur... Alkarrekin bizi gara Aita baten aurrean!

Illerrian, Gotzon'en pentsamentu eder bat leku biurtuta ikusten zan. Barru-barru-raiño, dardaraz sartu jakun an ikusi genduna, ta zuri aditzen emotera nator: Illobi eder bat, besterik ez lakoa, iñun ez dagon erakoa, kanpo-santu erdi-erdian, aurrez-aurre egoan. Berezko dei bat egin euskun. Norena ete zan? Nungo aundikiarena? Baiña, Gotzon, zer sortu dozu or?

Arrituta, galdezka asi nintzan, a zer ete zan... «Azur tokia», gizon batek maitekiro erantzun eustan. Orain bai, Gotzon, azkenean gizonago eginda geratu zara. Guztientzat itzi dozuz zure jakituria ta maitasuna, lur santuan toki eder bat, berezia, guztientzat bat. On eginda irabazten de erria, egia zabalduta emoten jako erriari bizia. Ta azkenez, betor zuk maite zendun zuzentasuna minduta dagon gizadi ta Euskal-erriari.

* * *

Egi indarrak dei dagist mendiaren goitik.
An, gizon batek eukan egia bizirik.

Maiñu da ziñaldari, Gotzon il ezkero.
Onen lorratz garbia ikusten argiro.

Zure oroimen garra indartsu bizi da.
Etxerik-etxe zabiltz, beti, on egin da.

Nor ziñagun mendian? Guztien anaia!:
Len jakituria, gizon izatia.

Gizona izango ziñan gizonen artean,
Gizontasuna dozu gogo-oroimenean.

Basetxe bakoitzean dozu aldara bat
Ta ango nausi gazteen biotzak zuretzat.

Zer maite izan zenduan, Gotzon abadea?
Zeurea zan Erria, Maiñu'ko Jendea.

Maitasuna itzi zendun, ixuri-alean,
Zu, pozez bizi ziñan Lurraren gaiñean.

Zertzuk esan zenduzan abade bizitzan?
Egia ta Zuzentza maite izan zenduzan.

Maite zendun egia, azaldu zenduan,
Erriak bidezko zan egia artu eban.

Gero il egingo ziñan, eriak etsirik,
Erria zeugaz dozu, maitatzen, bizirik.

Egin zendun guztia ta zure adorea,
Gaur, samurrago jakuz, GOTZON ABADEA.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

KAIXO, GOTZON

Udazkena Euskal-errian; laister izango dira urte bi, gau-erdi otz baten, eskuetatik oraturik, azken arnasean «gero arte» esan eustazunetik. Ordutik ona, ez dau, zuk ain maite zendun amalurrak, atseden aundirik izan. Illunabar luzea, alaitasunik eza, goibel aldia zure eriotzaren bigarren urteurrenean.

Eta txarrena, Gotzon, Zabale zure jatorriko baserrietxe inguruko zadorretatik zear, zure gorputzaren atzetik joan giñanok, ez gara gaur zure gogoaren jarraitzaille, ez beintzat danok!

Eriotz aurretxoan, zeuk aukeratu zenduzan nere semetxoentzat izenak: Sabintxu ta Joseba Andoni; izan ere maitagarriak ziran zuretzat izen bi orreik. Beti izan jatsuzan eredugarri XXIII Jon, Kennedy ta Luter King. Maitasunezko iraulketan ikusten zendun etorkizunik sendo ta garbiena. Baiña adiskide maite, «mitoak» izan ei ziran orreik! Eta, eta zu bere, Bermeo'n, «mitoa» zarala entzun bear izan dot batzuengandik. Ba ete dakizu noren edo nortzun ezpanetatik? Mito barri billa urrunera joan diranengandik. Bear ba'da, kaskarrekoren bat artzen dabenean, konturatuko dira zelako «jokolarien» jostaillu biurtu diran... edo, bear ba'da, ez.

Zure abade lagunen gora-beeren barririk ez noakizu emoten, baiña bai zuk ain maite zendun Kili-Kili mutikoarenak. Entzun dodanez, eta ba-liteke barriro bere erratuta egotea, lengo lagun batzuk, ez dakit zergaitik, laguntzea ukatu dautsoe. Ez dot uste larregi kezkatuko danik; batzuk ba-doaz... beste batzuk or datoz, eta geiago.

Beste orrenbeste jazo da AGUR zure ta gure aldizkari onegaz. Erri batzuetan arpidedun batek atzera egin dabenean... iru barri etorri jakuz, aren utsunea betetzen. Orain, alkar ezagutzen gara ta gure sendia geroago ta sendoago da.

Mañu'ko abadeak, Bermeo'n egin eban lanari buruz zer esan bearko? Zenbat ordu eder egin zenduzan bermeotar gazteak euskeran alfabetatzen, Euretariko batzuk, gaur, AGUR'eko idazleak dituzu. Baiña, depora asko ez dala, beste «alfaerderatze kanpaina» bat eratu eben norbaitzuk; ba-dakizu, zu bizi ziñan artean, naizta gogorkeriz etorri, ederto uxatu zenduzan euskeranto zaleak. Euskera errikoi ta garbiaren alde ziñan, baiña «kanpaina» orretakoak ez. Zure oroimena nabarmenduz, euskerantoaren «edertasunak» goraltzen etorri ziran. Nortzuk? Betikoak, «Behin batean» ipuin egillearen lagunak; zuk maite zenduzan errizale aundien etsaiak. Eta, Gotzon, ez da ori txarrena; zure lagun on ziranen artean bere erne dala, esango neuke, bedar itsusi ori. Ego-aizeak zorabiatu ditu banaka batzuk, gitxi, Jainkoari eskerrak!

Baiña ez noatzu itun dan dana esatera. Gure larreko ota artean bere, lora politak ikusten dira. Sasi arteko larrosak ez dira arantza utsak izaten. Eta zuk erein zendun azia ez da lur legorrean jausi. Bermeo'n, naiz Mañu'n; Urduliz'en edo Bilbo'n, Euskal erri osoan izan zenduzan lagun zintzoak, lengoak dituzu. An eta emen, zuk bateatu zenduzan «umetxoak» euskera garbian asi ta diardue. Akaitze, Asier, Aitzol, Ander, Sabin, Joseba Andoni ta abar, zuk ain maite zendun euskera txukunean eta gozatasunean alkar ulertzen dira. Sasi-intelektualak «euskerantoa» sartzen alegindu arren, erri erriaren agoan euskera jatorrak dario. Alperrik «erderantozko» liburuak argitaratu, liburutegietako auts-artean usteltzen dagoz, ta or egongo dira errizaletasun berbiztuak erratza erabilli arte, naizta eleberri edo poema batzuk «betiko» epailarien «benedikaziñoz» sarituak izan. Ba-dakizu zuk, nik baiño obeto, zelako jokoa darabillen azpitik...

Bai, Gotzon, gure gaurko landara bigunak biarko idazleak izango dira, ta gaurko gazteak, AGUR'en beintzat, beste orreik baiño lan geiago egiten dabe... baiña ixillean, zarata barik, arrokeri barik.

Amaitzera noa, Gotzon. Zeruko atsedenean ez ie-dago ezertariko mingotstasunik, beti izan ziñan beso-zabal anaikorra. Zure atean joten ebanak, beti aurkitzen eban aterpea. Bear ba'da, or Goian, danok izango dira bat; ea emen bere, errizaletasunean bat egiten garan.

Ba-litzake, datorren urtean, albiste obeak izatea.

Agur, AGUR'ekoen izenean, ta GERO ARTE!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

"LARREKO"RI OMENALDIA

Oraintxe eldu naz komentura. Euskal-yai ederra izan dogun lekutik. Auritz'en «Larreko» zanari omenaldia egin dautsogu. Intza Aita euskaltzain osoakin yoan naz ara.

Alango zerbait pozgarri izan dogu yaian; ta oraindik orain, biotzean eta izaerean gelditu yat ta senti oi dot. Lorategi ederrean ibilli ondoren, luzaro lora arrein usain gozoa adituz eta atseginduz egon oi dan lez, ona gaur «Larreko»ren gorazarrez egin dogun yaiak, be, enegan dirau oraingiño, alaitasuna emoten.

Iraillaren 10'gn, igandea. Goizean, egun illuna ta lanparra ari zan: eta bildur gintzazan, egun txarra atarako ete zan. Baiñan arratsaldean ez dau euririk egin ta zerua garbitu da.

Auritz'en bertan eta inguruko errietan, be, yendeak pozik zeuden, yaiaren zain eta begira. Egitarau osoa, iragarrita egoan lez, yoan da, ta ondo yoan gero: Amaiketan alkar mezea izan dogu, amairu meza emoille giñala. Leenengo mezakidea, «Larreko» beraren semea, Jeronimo yauna, ta beste iru mezakide, aren illobak, aren anai ta, a lez, sendagille ta euskaltzale dan Hipolito yaunaren semeak: bi yosulagunak eta bat abadea.

Oneitako batek ebanjelioko berbaldia. Mezea ta meza tarteko ebestiak, dana euskeraz, erriko ta ingurumarietako yendeek ondo abestuak. Sagara ondoan, dantza gozo, bigun, zarata bakoa, erriko gazte batek. Alderdi areitan gorde izan dan aintziñetako ekandu ederra. Atsegin izan da!

Eleizea yendez mukuru beteta. An egozen leenengoz, «Larreko»ren anai sendagille, Hipolito yauna, Donosti'tik etorria bere larogei urteekaz, ta «Larreko»ren seme diran Aingeru, euskaltzain osoa ta Luis eta Jeronimo abadea, baita «Larreko»ren billobak, ta onein artean, Jose Anjel sendagille gazte ta euskal idazlea, ta abar.

Eleiza mundu bat zan: Euskaltzaindiko buru ta beste batzuk; Naparroa'ko Aldundiaren lendakari Amadeo Marko yauna ta «Principe de Viana» dalakoaren zuzendariak. Jauna artzerakoan, iru abade gure Jauna banatzen. Meza ondoan txistu ta soiñuen artean, «Larreko»ri yaiotetxean ipiñi yakon oroitarria agerian jartzea.

Yarraian, Udaletxera danok, Euskaltzaindiaren agiriko bilkurara. Leenengoz, euskaltzain buruak berbaldi laburra ta idazkariak zenbait oar egin euskuezan. Ondoren, iru itzaldi «Larreko» zanari buruz; bata, Intza Aitak «Larreko»ren garaian zan Euskeraren giroatzaz, Naparroa'n bereziki. Besteak beste, «Euskeraren Adiskideak» eritxon alkarteatzaz itz egin euskun. Argi ageri zan an, orduko «Larreko» ta «Larratxe» ta abar, euskerearen alde egiteko aalegintzen zirala bene-benetan.

Bigarrena, Piarres Lafitte jaunak: «Larreko» euskal idazle. Pare gabeko idazlea izan zala yakitera emon euskun. Irugarrena, Eusebio Erkiaga yaunak: «Larreko» gizon eta sendagille bezela. Irurek ziñez ondo egon ziran, eta pozik entzunak eta azkenean txalo-txalotuak izan ziran.

Ezin etorri izan ziran yakitunak, euren atxikidura bialdu eben bai eskutitzez, bai urrutidazkiz. Ezin izan ziran danak irakurri izan, etzegoela betarik-eta. Berriotxoa Anaiaren eskutitzaz eta Arrue yaunaren urrutiko «brindis» alaiaz oroitzen naz.

Bazkaria, benetan ona emon euskuen, ordu bietan, bertako «Loizu» ostatuan. Agursolas beroak izan ziran bitartean. Onein artean, Haritschelhar jaunak, iparraldeko euskaltzaiñen ordezkaritza ekarrela, arein izenean esan ebana. Bazkaria amaitzerakoan, Jose Anjel Irigarai, «Larreko»ren billobak, asmo eder eta mamin andia dauena agertu eban, Napar-Aldundiko buruari zuzen yoakona: Orreaga'n ondo izango zala ikastola andi bat, nekazaritza ta abere-azketa irakatsiko leukezana. Ikastola orretara yoan eitekezala Aezkoa'ko ta Erro-ibarreko ta Esteribar'ko ta abar errietako gazteak, gai orreik ikastera. Ta ganera, ikastola orrek euskalduna bear leukela izan, au da, Euskereari egiazko garrantzia emon bear leuskiola.

Azkena, Aldundiko buru Amadeo Marko'k bazkariaren amaia, bururakizun bi oneikaz: «Larreko» ikustalderdi bitan izan zala andia, euskal-idazle ta euskaltzale bezela batetik, eta sendagille bezela bestetik. Naparroa'ko Aldundi-eritegiaren zuzendari, bera izan zalako. Beraz, merezi ebalako, bere aldetik aaleginduko zala aren aldeko asmo orreik aurrera eroaten.

Arrats apalean dantzariek eta txistulariek. Naarroa'ko dantzak, asko azturik egozenak; eta orain barriro ikasi ta egiten asiak. Donosti'ko «ARGIA» taldeak aurrera euskuzan gure begietara, oso ederki. Albokariek be, yo eben eta ondo.

Azkenean ene eskaria. Idazki barrilari au amaitu baiño leen, eskari bat egin gura neuke. Ene gazte denporan, ordurako elduak ziran kaputxino euskaltzaleai, sarri, onako au entzun neutsen: Ibero Aita kaputxino entzutetsuak, eskutitz ageria egin eutsola «Larreko» yaunari, Iruña'n atara oi zan «La Avalancha» agerkarian. Ta agiriko eskutitz arek ba-daukola zerikusirik «Larreko»ren euskal bizitzan.

Egia ba'da —eta uste dot egia dala— erraz da eskutitz ori arkitzea. Ibero Aita, 1909'an il zan bere 36 urteetan. Beraz, eskutitz au aurreko urte gutxitan egiña zan. Irigaraitarren batek billatu ta aldizkariren batean atarako ba'leusku, askorentzako pozgarria litzakela deritxat.

Eta beste barik, agur Jainkoaren baitan.

YURRE'TAR YULEN A.k

"BIDEAN GORA"

Emen daukat, esku artean, olerki-xorta au. Esku artean esan det, baiñan ez. Biotz-biotzean, gogo sakonean, ene adimen guzian. Zenbat on egiten duten onelako olerki sakon eta lerdenak! Zein egoki izango litzayoken gure gaztedi emankor oneri; emen ikusten diran zuzentasun bideak jarraitzeko indarra ematea! Bein eta birritan irakurriaz ain zuzenbideko oldozkuntzak!

Gogo mindua dauka —ta nork ez?— gure Muniategi'tar Sabin'ek, baiñan alaz ere, gizarteko maitasun goriyak gaiñez egiten dio bere biotz zabalean, ta or datorkigu alkar-maitasunez beterik, eta itxurari baiñon barrenago begiratuz, gizonaren sakontasun mami-mamitsua billatuez, gizonaren Jaungoiko-semetasuna dager.

Onela dio: «Ez zaitez ez, arritu, ille luze ta bizar tximazko gazte baldar eta alako agure zar birloratu askoren ergelkeri ziztrin, zorongo-morongozko ero aldiakin; ez ez arako neska pandero, neska zoro, emakume batzuen gona antzeko, gonatxo erakusteakin...

Ta, zoaz aurrera, zoaz bai egiazko egitada, ekintza adoretzus, bide gizonki iantzi ta ibilgarrituz, zoaz gaurkoz, zar-berri eraberritua, muin betikorrez bidea irikiz; zoaz gizonki gizonaren gizonera, bere zabal ta estura, zoaz bere gogai, bere barrenkezka, bere buruauste, bere itxaropen, bere izate ta agerkerara, bere biotzeko lorearen berera»...

Bai! Zein ongarri litzaioken, gure gaztedi oneri, zuzentasunaren billa dabillen gaztedi jatorrari, onelako bide maitekorrak arkitzea!

«Zoaz esku bat, biotz bat, kideko gogoren bat arkitzera; zoaz baikor, bulartsu ta sendo, bideko arri-koxkor oztopoak kenduz; zoaz aidetsu, biouztun, zoaz bidebera... entzun, ikusi, adituz, gizarteratuz; zoaz bakarti, ta danekin bat. Zoaz eskulatz, izardituekin bide gogor, bide nekezez, zoaz abegi on bearrezko dan ardura itzalez, zoaz gizonaren bidera; zoaz bai bere gurari, bere urduritasun, bere altxor bizira ta, eguneroko bata-besteratze bidegarriz, eguneroko bidegite, sendagai osasuntzuz, ta askozaz zoriontsuago, gizonago arkituko zera!»

Muniategi'k diyon baiño bide zuzenagorik arkitu ote genezake? Zertara joan urrutira «gizon» billa, gizona guregan izanik? Utzi ditzagun erbestekeriak, aurkitu dezagun eusko-gogoa, ain zuzena izandu zan gogo ura, geure legeak egiten askatasun berdin gabean, eta... goazen aurrera! Begiak begietan, biotza biotzetan, alakarri esku emanaz, berak dion bezela.

ONINTZE

POZA ETA KEZKAK

Aldizkari jator baten irakurriak dira oneik, LERTIBE'k idatzita:

«Auxe irakurri neban automobil eder baten atzeko leioan: «NAIZ EUSKALDUNA».

Txarto esana, oker idatzia. «EUZKALDUNA NAIZ» esan bear eban». Txalotua izan bedi aren gogo ona; baiña gogo on utsagaz ez dagigun alperrik galdu geure Euskera ederraren joskera jatorra. Paperorritxo bat artu ta, neure asmo onenarekin, automobillaren ugazabari, auxe idatzi neutsan:

«Gora zure biotza!,
baiña kontuz erabilli arkatza;
maite gure Euskera aberatsa,
eta atondu, mesedez, daukazun akatsa».

* * *

«Busturi'ko jaien egitarauan, auxe irakurri neban: «Goizean, 9-tan; Goiz-Txistu soiñuak alaituko dausku danori, *)eta zergaitik ez, alaituko gaituz danok?)»*

«1-tan Busturiko IRRINTZI ALAI dantzari taldeak, biztuko dausku *euskal dantzakin. (eta zergaitik ez, biztuko gaitu?)»*

«Caja Laboral Popular diru-etxe onek emoten dala *errediturik geien».)Eta zergaitik ez, «emoten dau, edo emoten dausku errediturik geien»?).*

* * *

Neuk ere, gaur guri euskeraz irakasten dabiltzan biri, auxe entzun neutsen batzar batean: «Atzo ez notzun *ikusi* zuri *Deba'n».* «Ni *bez* zuri» *erantzun eutson besteak.*

Ni, ixilik lotu nintzan, euskal-belarriak egin eustan asarrea gorde eziñik. baiña an egoan beste euskaldun jator batek olan azaldu eutsen: «ATZO, DEBA'N, EZ ZINUDAZAN IKUSI, ZU». Olan esan bear zala adiraziaz.

«Atzo ez notzun ikusi zuri Deba'n». ¿Zer ikusi gura ete eutson? Sabel-zilla? Ala zerbait geiago? ¡Mutillak, kontuz euskerarekin! Edozeiñentzako ezta! Humbolt doistarrak esan ebanez. Gutxiago, orretarako esakerak guri irakatsi nai dauskuezenentzako!

* * *

Iruña'ko «Verbo Divino»ko aurrak, Lizarra'ko eleizan, mezetan, kale abestiak eskeiñi euskuezan, baiña «Aitagurea», Gure Aita'ra eldu giñanean, danak ixillik, ez ekien-eta.

PIPER-ZIRI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri, asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

GAZTE

Gaur sail, onetan, gazteen adizkide on batetzaz zerbait esan bear-eta, zer obarik, gazte batek eskeiñi dautsazan itz-neurtu oneik agertzea baiño!

Zaar-saritua izan da, ta bere bizi luzean bete daben lanetik aldendu, orain zaartzoroko ondo irabazitako atseden aldia beretzat. Saria? Onelako gizonak ez dabe iñoiz izaten dirurik ez saririk, ezta bear be. Ondo egiñaren atsegiña ta besteen maitasuna dabe sari ta bizi ta biotz poztasun. Ta Iñaki Anai jatorrak, beste maitasun askoren artean, bat benetan irabazi dausku, gazteen maitasuna, garbi eta sendoa!

AGUR'ekoak

EUSKALDUN AUNDI BATERI

Euskal-erriak ba-ditu
Gizon jatorrak ugari,
Orrein artean daukagu
Olabeaga'tar Iñaki.

Jaungoiko zale beroa,
Kristau utsa ta fededuna.
Benetan gizon apala...
Erri maitale euskalduna.

Erri-erriko lorea,
Gaztea izan zan artean...
Lorategi iger gabea
Bere zartzaroa aztean.

Izkuntzaren gudaria,
Errikoia ta jatorra.
Zentzundun bertsolaria...
Pake zale euzkotarra.

Biotz bigun errukitsu,
Euskera polit, garbia.
Biotz-biotzez maitetsu,
Ez dau ukatu bere Erria.

Gaztedian fede dauna,
Jaunaren seme leiala.
Gure txaloak dituna...
Biotz argitsu ta alaia.

Iñaki goragarria,
Eskertzen dautsugu lana.
Nai dozun Euskal Erria
Etorriko da gugana.

Ametsa ez da galduko;
Or da dakizun eguna.
Batera dogu ikusiko,
Erriaren jauntasuna.

EZKAURIATZA'TAR XABIER

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18 **E I B A R**


AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 18
21-15-07 urrt. **BILBAO-5**

24 ertilari euskaldunak euren elesti-lanak eskeintzen deuskuez



BASTERRETXEA - serigrafía - IRAILA 1972

ederti

ARTEKALE, 14
DURANGO (BIZKAIA)

KONTU KONTARI

Gure Erria egoaldiari buruz aldakorra da. Orregaitik-edo, egoaldiari dagokiozan era barriko igarkizunak entzun nai izaten doguz. Ez dauskue baiña gauza ziurrik iragarten. Gure erri-aldea zailla dalako? Ez dakit. Beintzat olakoak entzuten dodaz igarkizunetan: «Goizean be-laiñoak eta gero odei aldakorrak». Alderdi onetako barri ez dakie nunbait ta bada-ezpadako zerbait esanaz, ez dabe oker aundirik egiten erbestetarrok.

Geure artean be ba-doguz artzain igarleak eta abar. Baiña oneik, auzardiagoak dira; iru illabeterako igarkizunak egiten dabez, ta ori, egun batetik besterako egiten dana baiño zaillagoa izan. Oba ixilik egon!

Aldi baten orraitio egoaldi-igarle trebea izan gendun Durango'n; Arrinda eritxona. Egun batetik besterako igarkizunak egiten ebazan arren, ziurrak izaten ziran. Amaika arrantzale gaizkatu ebazan arek itxasoko ekaitzetatik! Olan zalako, Bizkai Aldundiak ogipekotzat eukan. Salantonioetan egoaldi ona egingo ebala, arek esaten ba'eban, joan zindekezan nasai abarketa zuriekin, Urkiola'ra.

Egoaldi ederragaz, eguzkitsuagaz, eskuan aterkia eroala ikusten ba'zendun, kontuz aldendu bearra izaten zan etxe inguruetatik. Gaur... «sombrilleagaz», norbait ikusten ba'dozu... ez noa ezer esatera? Joan zaite aterpera!

Arrinda'k, zelan igarten eutson egoaldiari? Batzuk esaten ebenez, orduan «Ferrocarriles Vascongados» (gaur beste izen bat daroe), izenarekin ezagutzen ziran burnibideen doiñuak, otsak edo danadalakoak iragarten eutsan egoaldiaren etorkizuna. Nik ez dot uste olakorik. Arek, bera sortu zan zeru-ortze ta aizeetatik asmatzen eban. Izadiaren maitale benetakoa bai zan.

* * *

Euskal-ostikoketa dala-ta.—Astelenetan Bilbo'n azaltzen dan astekarian, auxe irakurri neban: «El balón después de tropezar en varios jugadores de uno y otro equipo, llega a poder de Betzuen, quien de tiro colocado consigue el primer tanto de los **vascos**».

Aurrera jarraitu baiño len, jakin egizue, Donosti'ko Real Sociedad eta Bilbo'ko Athletic, Zarauz'en dagonillaren 20'an jokatu zuten jokaldiari dagokiola «parrafada» ori.

Eta jakiña; guk, geure buruari galde: zeintzuk dira **vascos?**. Donostiarrak ala bilbotarrak? Bilbotarrak bai ta donostiarrak ez? Izparkari arek ez ekian zer esaten eban be. Senditarteko arazoak nastu ta zitaldu nai dituenen lurrunak ete dira?

Ibilli gaitezan argi, olako izparkari «despistauekin»!

Ta... «despistaubakoekin be bai! Kontuz!

ABELETXE

AITXE, BETI TABERNAN

Bai, nire aitxe, gure aitxe, gaur zeru ederrien daukegune, ikuste gendun taberna taberna... Bai, eta benetan-benetan, zori on onez. Zori ederrez, zori eskerrez. Aitxe gurie, ona, benetan on-ona.

Bederatzi seme-alaba. Danok illeran eta zarratu, mundu onetara elduekuek. Eta gizon bat, baiña benetako gizona, bakarrik etxien bere bierraz, bere izerdixaz, bere buru austiaz gure aguok betetako, zer jan da eran etxeratzeko. Au izen zan gure aitxe, Juan Bolante zana.

Nausixok koxkortuez, berak zer esateban azaltzeko izen gintzanien, aitxek esaotsen gure amari gure ama Erremunda on-onari:

—Umiek begi zabaltzen asitxe daz. Alan ba sekula-sekularixoen geixa ez, ez nabe ikusiko nire umiek tabernan.

—Jesus, Juan, Beti izengo za bierrien? Buroik altzau be barik...? Ez, ez esan eta egiñ olako gogortasunik, Juan. Lagunekin be artu-emona bier dozu. Beti buru-bero, buru austa jardun barik ordu luzietan buruz gaiñ lanaz.

—Esan dot. Sekula bez, emetik aurrera...!

A esan, eta bera izen. Gure aitxe gogor-gogorra izen zan bere buruantzat, eta baitxe gure ume ta gazte denporan, zuzentzen, gure biziz-bidea erakusten be. Tinta-paper opiziokue. Argi pabrikie, izenez Saltos del Rio Ondarroa zan, oiñ berrogei urte edo geixa, Markiñ'eko, Ondarru'ko, Lekeitxio' ko ta emengo buelta guztiko argi emotaillie. Artibay errekako ur-saltotik atateban inderraz. Aitxe gurie zan paper eta dokumentun gora-beren zuzentzaillie. Negu denporan, asi gox-goxetik eta berandu arte bururik altzau barik, jardun da jardun bere «opiziñan».

Ude denporan, ostera, Urberua'ko Balnearixuko paper zuzentzie egiteban. Dana bier! gu, bederatzi seme-alaba aurreratzeko. Gauero, naitxe eurixe, txingorra edo edurre izen, gabeko orduetan, goiz aldeko orduetan, oiñez etorte zan etxera Urberua'tik, iru kilometro edo geixa eiñez. Ama Eerrmunda egote zan lau orrixen, bentanako kristel ostien. Guk, ogetik, ikusten gendun bere gorputze dardar, bildur eta gabeko otza naste.

Alako baten, agertze zan aitxe. Orduen, danok ixillik eta trankill lo egite gendun. Larogetamar gau orretan...! Urrengo egune zabaldu batera, an doie gure aitxe ostera be bere bier tokire. Dana bier ba. Zenbat arnasa estu. Zenbat buruko miñ, ume aldrie aurrera eruteko. Beti alkarraz, beti bat, gure ama ta aitxe. Zien gutzet Jaun Goiko ber-beran esku bidak.

Alan gauzak, egun baten, aitxek diñotse ama guriai:

—Asko bide. Umiok gorutz datoz, ta zerbait pentsau bikoda.

—Jesus, Juan. Zure osasune be...

—Jaun Goikuaz ondo egon ezkero... lagun izengo da gugez beti, ta beste danok orniduko die, bai oixe.

Esan eta izen. Umie nintzen, txiki-txikixe, amak esan ostenien:

—Ba-kizu? Aitxe «negosixo» bat ipintzeko ustien dabill.

—Bai? Da zer «negosixo» modu da ba?

—Zure gustorokue beintzet...!

—Ardau kontue orduen!

Igerri notsen, bai. Ume-umetatik, neu beintzet, ardau apur bat artzeko konpirmento bakue izen naz, belarri ostiok epeldu arte.

Traje-korbetie kendu, eguerdi orduen, amabixetan, buzu urdiñe jantzi, eta or doie aitxe gurie zaragi beteta, lotu, eta burditxuen edo «karretillan» ipiñi, ta kale-kale, an doie lotsa iñuzente barik, poz-pozik, bere umien ogi bidez, gure aitxe, taberna taberna...

Korbetedune izen arren, gure aitxan paparra zabaltze zan bai, argi eta garbi, arnas estuz da izerdiz, egunero zaragixok moldetan taberna taberna... Aitxe, beti tabernan... baiñe, ez, ez eranien, bai ERA ONIEN...

JUAN JOSE ARRIZABALAGA
«MARKIÑA»

BARRENKALE

Aste batzuk dirala, Guenkaletzaz jardun bidea izan gendun, Goenkale izen ori goi aldeko lenengo kalea zala adierazoaz. Gaur diardugun Barrenkale izentaturiko kale ontaz bestalde esan desakegu, ba erreskadan seigarrena danez, ta bere irazpen aroan azkena ei zan (geroko baten zazpigarren kalea sortu izan bai zan), bere izenaren etorri berezia barreneko edo bee aldeko kalea da; ta ortik egi-egitan gaurko izen ori datorkio. Asierea be Erribera kale berberan dakusgu. Beste baterako itxiko dogu, zazpi-kaleetatik azkena dogun Barrenka-barrena'ren azalpena.

Barrenkalean, lendik esanda dogu, kaiorde bat egoan, ta araiño arrain txalupak ezeze beste muetako zama-ontzi txikiak, orduko Bilbo'k bear zituan aiñakoak, eldu oi ziran, Bertatik, arrain banaketak batez be, batera ta bestera, Belostikale'ra geien bat, egiten ziran. Bilbo, aro artan, txiki-batua zan. Lau Eleizekaz inguraturik, erdi-erdian pillotuta, kokatuta egoan. Kale ontan ez daurkigu edozelango Etxe-dorrerik, ta Nerbion ibaitik ekarririko erosgaiak, bertatik igaro bearra ebela-ta, garai artan bide estu luzenga bat bakarrik ei zan.

Arraiñez kanpo, salerosketarik ia ez egoan, bai baiña upelgiñen zaratots ugari izugarria. Edeslarien aburuz, berein upelgille egoan kale bazterretan, ta upelak ezezik ordi, xardindupa ta suillak ziran eguneroko ogibideari jarraituz, erosleei opatzen eutsiezan salkariak.

Gaur egunean ba-dauko kale onek bere zergaitia ta garrantzia, bai bein. Kale zear ez dakusgu denda aundirik, Artekale'n eta Dendari-kalean lez. Ospetsuenak Marsa Biltegiak dira. Igali-arnari dendak, arrautz eta olio-ale saltzailleak, ta itxas-bestaldeko edarijanariak eskeintzen dauskuezanak ugari-ugariak dira. Batzuk esateko, Ortiz'en alarguna, Bilbotar Arnari Batasuna, Gil jaunaren arrautz-saldegiak, nire aspaldiko adiskide dan Bobifacio Lopez'enak. Onek gorde-jaki ta olio-ale guztirikoak saltzen ditu. Arategi ta txarrikitegietan Garay ta Lago txito ezagunak dira. Jatetxeetan entzute aundiko Bilbo'n eta erki guztian «Luziano Jatetxea» dogu. Makaillao ta euskal-kutsuzko janariak gertatzen benetan aparta bera; orain bere jantokia barrizten.

Ardau ta patar gertaketan eta edari bizien iratzietan Ezpeleta-Zubillaga, bat dirala doguz. Oiñetako saltzaille garrantzitsua, Manolo'ren anaia, F. Dominguez, bera be betiko lagun mazala, Manolo'k eta biak Bilbo'ko Parte-zaarran erro-errotik tinkaturik sal-erokestan daragoie. Ta azkenez, Barrenkale, Guenkale-txikia dala esatera bearturik gagoz. Txurrutalariak emendik abiadea artu ta arat-onat or doaz Txakur, Lorategi ta Askao kaleetara, arrats-gaua aurretik eguneroko kezkak biguntzera. Edategiak illaran idoro leitekez, ots: Barzena, Sebe, Sollube, Aitzgorri, Bolin, Arana, Rotaetxe ta besteren bat. Beti neurriak zainduaz, gogaldi ona bearrezkoa da. Lana ondo dagianak, atseden pizkat joranez billakatu daroa.

Ta Euskereari zertxobait damotsezue? Seme-alabak baietz deritxat. Baiña gurasoak? Ez bai-da naikoa umetxoak ikastoletan izentatzea. Ortik asi bear gara, ori bai. Ainbatek diñoste euren umeen euskal ikaskizunekin gauaz eurak be ikasi darioela. Olan ba'da, gaitz erdi. Oba litzakelakoan gagoz lendik jakin izatea. Txarrena baiña, ez bata ta ez bestea egitea. Ikastaroa egunotan asten da. Datorren udarako seme-gurasoak ulertu ezeze, berba, astiro samar ba'da be, egin dagiela gura neuke. Olan ba'da, pozez estutuko dautsuet bostekoa. Zuen zain eta urrengora arte.

ARREGI'TAR JOSU



KIROLAK



SOKA-TIRAN, INGLESAK ETA EUSKOTARRAK

Oraingo izparringi askotan auxe ikusten dogu: argazki ugari, azpian irakurgai labur batzuek dituela. Irudi-bidez barriak azaldu, itz gutxitan. Orra or ingles eta euskotarren arteko soka-tira jokaldia. Luze idatzi bearrik ez dago, batzuen eta besteen ganorea ikusteko. Alde ederra! Areik, tajuz, dotore, giartsu; gureak, gizen, koipatsu, itxurra txarreko. Inglesak, jinasi-soinketa bidez eta noizean beingo palanka-saio ta arraunketan gogor egiñaz ederto prestatuak; euskotarrak ostera, edozetara, arnas-estuka, indarka zoroan... Inglesak errez irabazi, jakiña!

BEIÑAZU

MATXITXAKO (III)

LURRALDEAREN IZAKEREA

Lur-gayetan jakitunak diñarduen araoak gogotan izanik, MATXITXAKO lurralde aonen izakerea egiztuten da, eta olantxe, lurrok zenbat eta geyago itxas-aldera urbildu, «are-arri» eta «kare-arriak» billatuten dira, eta itxas-lur ertzatara urreratuten gareanean «arbel-arria», eta or-emen, «arri-orlegi gogorra» aurkituten da.

SOLLUBE mendi-gaillurraren sortuerako igesi-aldietan, mendi-tontor eta beronen erroak eralduriko aldietan, lur-ixiltza ikaragarrien bat jazo dala erakusten dausku, eta beronen besorik urtenena BURGO deritxo eta mendi garai aonetatik, aldapebera, geldi-geldika, bigun-bigunki, lurrok itxas-ertzara narrazka datoz arek-eta itxaso-zabalagaz bat-egitera.

ARBALLU'tik GAZTELUGATXE'ra doan arri-bide zarraren alboetan POZU-ILLUNAK deritxon zingiratxoak dagoz, eta toki-aonetan «are-arri» guztiz andi andiak billatuten dira, errekaarriak lakoxeak dira, ertz-biribildunak, ba'litzake aldi aretako itxaspe-lur-ikara gogorrak jaurtirikoak izatea, edo itxas-uin bultzakada izugarriak, asarre gogorretan, egazkada indartsuakaz toki orretan ezarritea, bertan-bera, zirkiñik egin barik, millezka gizaldietan gaur ere olantxe dakusgu, gizon-indarrak ezerbere aldatu barik.

Eta lur-alde onetako Zugaztiztia arakatu ezkero, esan daikegu lenengoz «are-arriak», geldigeldika, auts-egiten asi zireala, eta gerorantz gorputza egiñaz, lur-tipi edo lur txikiak eraldu zireanean, urtien-aldiz, lur-mamiñak egingo ziran, eta eurotan sorturiko zugatzak ba'litzake izatea Areztiak, gero Artadiak, eta oraintsu Gaztañadiak eta nire seintzaroan Gurguxa-zugazti ostroak ziran, gaur barriz, alde guztietan Piñodiak dauko bizitasuna.

Itxas-ertzatako lurralde oneik, oraintsu-arte, berezi ixillak ziran, arri-arteko baso-zugazti makalak, sasi eta ostroz illunpekoak, gizon-bizitza bakoak, ezetariko bide-bakoak, bakar-bakarrik MATXITXAKO'tik ERKOREKA auzotegiraiño eta emendik GAZTELUGATXE'ko itxas-ertzaraiño bide-oker, bide-bedar eta arrisku andiko «oin-bidetxo» bat ezagutu genduan, gaur, bide onen lorratzak galduak-edo dira.

EREMU-lurrok guztiz latzak ziran, arek-eta gizon argi eta zurrak aizkora-bidez, sasi eta ostroak iñusturik tokiok garbitu eta bizitzarako naiko egokiak ezarri-arte.

MATXITXAKO'ko lenengo bitxabala 1880' tik 1884'garren artean egiñak da, Laterriaren aginduz edegitako bide-zabala, BERMEO uritik eta Itxas-argira ibitaldiak egitekoa, eta 1918'garren urtean Bizkai'ko Aldundiak MATXITXAKO'tik BASIGO-BAKIO'ra luzeagotu eban.

Lur-alde aonetako giza-bizitza 1790'garren urterantza asikoa ete dan, gitxigora-bera diñoe, lenengoz GIPUZKOA-aldeko GOI-ERRI'ko artzaiñak agertu ziran, eta SOLLUBE ondoko eguzki-begirako lurrak artu ebezan, eta euroen ezkontzatatik dakusgu abizen garbi eta ederrak: AYESTARAN, ERAUZKIN, GARMENDIA, IMATZ, IPARRAGIRRE, IZAGIRRE, IRAZTORZA, MENDIZABAL, MAIZ, MENDIBURU, ORAINDI eta abar. Euroen etxe-aldeak MAÑU deritxon baso-aldean ziran, BERMEO Uriko «Erri-basoak», eta artzain «etorkerea» geyago geitu zanean, MAÑU-aldeko lurrak gitxi zireala, besterik ez da, alegindu zirean MATXITXAKO itxas-egaletako EREMU-lurratara joaten eta ementxe sortu ziran ERMU-GOIKO, ERMU-BEKO, GOIKO-ETXE eta BEKO-ETXE eta oraintsu-oraintsu, 1903'garren urte ingeruan BASOGALANTA deritxon berezi-basoan, esne-beyen «korta-lekua»n basetxe eder bat egin eben.

Itxas-aldeko lurrok erakusten damoskue lenengoz, toki oneitan sortu ebezan bizitza-etxeak egiteko urte askotako lan-neketsuak zireala, ba, lurraldeok naiko txiroak dira eta «oinkadako» lur-zatitxo bat lortuteko ainbat aitz-andi eta guztiz astunak kendu eta bastertu bear izan ebela, arri batzukaz munak egiteko, aukeratu ebezan eta beste arri-pillokadak itxasora jaurti bear.

Arrigarrizko lan gogor eta gogagarrizkoa, ekiñenekiñagaz jadetsikoak, gure abendako gizon sendo eta langilleak egiñak, geure Euskalerriko langille zintzo eta nekerik ezagutu ez daben gizon kementsuak egiñiko basetxe eta soloak.

Eta mune-arriokaz egiñiko ormai begituten ba'dautzegu, dakusgu, arri guztiak, banan-banan, bata-bestearen ganean ezarrikoak direala, ezetariko amasa edo orakari barik, esan daike gizadiaren asikaldiko eraz egiñiko ormak direala.

Alde onetako Lurralde-Izakereak eta Zugaztizkiak agertuten damosku, toki oneik iñoiz ez direala izan «MATS-tokiak», baiña (lendik ere aitatu dogu), bateren batzuk itz onen oiña edo aurretizkia MATX ikusirik, uste dabe MASTI edo MATZ-tokiren bat dala, eta obetoago «ezeztuteko» toki au ez dala MATS:lekua izan, esan bearreko naz, lurralde oneik «ekaitz» eta aixe gogorrezko leku-otzak direala, eta MATSA artuteko toki bero eta eskutuak izan bear dabe.

MATXITXAKO'ko lurraldeak itxaso-begira dagoz, urte-aroko egun geyenetan eguraldi aixetsuak izaten dira, sarri-sarri euri-uyolak, askotan izugarrizko ekatxak, be-laiñoak eta odei-narrasak lurrok estalduten dauz illunpean, ez dago egunik ozkirri bakorik, sarriago dira eguraldi «ozmiñak» eta eguraldi izatekera oneik matsarentzako oso kaltekorrak dira, batez ere Udabarrian, matsa loretuten danean, ba, mats-lorea erre egiten da, eta onez ganera Uda-aldean ezin leike, onelango lurotzetan, matsik eldu.

(J. 1., jarraituko da).

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

OPORRALDIAREN ONDOREN

Udarako oporraldiak diralarik pozgarri zaigu igarotako egun zoragarriak gogoraztea. Etxeratutakoan, mendi-alde ta itsas-egian gozatu ditugun une atsegiñak maiz datozkigu oroimenera.

Eguraldi onak lagundu gaituenean eta naiz eguzkiak geigi berotu, itzala ta aize preskoa aisa arkitu ditugu; eta giroa txartzen zanean ere aspaldiko adiskide ta lagun eta ezagun berriekin artutako atsedenak eman digute ordaiña.

Bizkai eta Gipuzkoa'tik etorritako beste sendi asko bezela, ni nere etxekoekin Naparroa'ko Lizarra uri ederrera elduak giñan. Emengo zumardi oparo, ibai garbi, osin garden ta bazter ikusgarriak lekurik egokiena eskeintzen dute oporraldi paketsu bat igarotzeko. Aur eta umeok nun jolastu eta igeri egin ba-dute; eta jende larrientzako toki zelai, egurastoki ta txoko ta txango erosoenak nun nai.

Aurten Lizarra'ko «Los Llanos» zumardia, egurastokia dalakoan, eta Estella zaarreko enperantza ta karriketan erruz entzuten zan euskeraz mintzatsen. *Arantza! Edurne! Aitor! Amaya! Eleder! Asier! Iñaki!*, oiuak gurasoek beren umeei otsegiten ernegarri zitzaigun eta euskaltasuna gure artean ez dala il ezaugarri. Nexka-mutillek bere artean ere euskeraz ari zirala aditzeak guretzat ez ezik Napar erdal erri bateko jendeentzat erakusbide sarkorra. Ain zuzen inguruko uda-kolonietatik taldeka agertzen ziran nexka-mutillek gizaseme iraskale ta andereiñoen ardurapean indar berri bat ematen ziguten gure barruan zirrada baikorra sortuaz.

«Verbo Divino» ikastetxean zeudela erri askotatik bilduak esan ziguten nungotarrak zirala galdegin genienean... Onela igesi joan zitzaizkugun oporraldiko egun zoragarriak. Auetako batean beste berri on bat. Alegia: euskalmeza izango genuela jai-bezpera guzietan Eliza Nagusian.

Aguro zabaldu zan gure artean albistea. Esandako egunean an bildu giñan euskal udazale pilla aundi bat ea eliza betetzeraiño. An azaldu zaizkigun eundik gorako umetxotalde ugaria. Guziok alkitan eseri gera ta mezari asiera eman zaio. Bertako parroko jaun baztandar apaiz euskaldun mez-emaille. Begirune osoz, errez eta garbi esaera, aurrera dijoa eleizkizuna. Pozik entzun dugu aren itzaldi errez eta egokia.

Jaunartzea amaiturik bedeinkapena emanda bukatu du esanez: «Zoazte pakean»... Eskerrak Jainkoa'ri! erantzuna eman diogu...

Bai eskerrak eman bearrean gaude beti baiñan egiari zor zaiona aitortuaz esan bear dugu ez giñala erabat aseturik irten elizatik. An beren irakasle-andereiñoekin bildu zan umetxo-talde ederrak, Eliza-kantak. Ots: Kirie, Erruki Jauna! eta «Santus» Jauneren goresmena abestu bearrean meza asiera eta bukaeran karrika-kanta arrunt, arro eta gogorrak kantatu zizkiguten... Samiña da esatea. Kanta oriek mendian eta plazan kantatzeko egokiak izan ditezke. Baiñan arrokeria ta gogorkeria azaltzen duten leloak ez dira elizarako. Au otoizt lekua bait da! Emen kristau-pekatari geran aldetik Jaunari errukia eska bear zaio eta aren Izena gorestu guzion gaiñetik. Eta beste oar bat au ere minbera: Jende larriak «GURE AITA» otoitza kantatu genuenean aurrak isillik zeuden. Nola kanta desateke ume gaxoak ederrena dan otoiz ori ez ba'zaie ikastolan erakusten?... Zer ikasten dute «Verbo Divino»an?

Gurasoek dute itza beroeiek kontuan erori bear dute zer diran Errelijio gabeko eskolen ondorenak.

Au da nere oporralditik ekarri dudan kezka eta naigabe bakarra.

ASPALDIKO

Irumugarrieta

Dagonillaren 5'a, asteartea, or joan giñan Aralar mendira bost apaiz lagun Patar aundiña, Tolosa'tik Guarda-etxeraiñokoa, noski, aisa igaro genduan izardirik atera gabe, patxaran jezarrita berebil batean; ez gendun ain errex igaro Guarda-etxetik Igaratza'ko Aterperaiño dagon tartea, oiñez eta ederki zamatuak, soiñean egun artako janari ta edariak. Amaika terdiak ba-ziran Aterpera eldu giñanean eta etzigun mesede txikia egin an arkitu genun Tolosa'ko sendi jator batek, gure makuto ta trasteak jasoaz.

Arindu bizkarrak, amaiketako txiki bat egin eta or abitu giñan bost apaizok, Zubillaga bide erakusle genula, Irumugarrieta'ra. Eguzki galdetan bostak ausarti, izardi patzetan alai, noizin bein zatoa dantzatuz, bidean aurrera. Ordubete igaro genun gaiña arrapatzeko... Ura begien poza! Naiz kandu aundia izan bee aldeetan. Ego-aizea sortu izan ba'litz ordun ta ezereztu kandu ura, bai erabat beteko zirala zorionez gure biotzak. Izan ere, gure oiñen azpiko erritxo polit ayek ez-ezik... urrutikoak ere ta itxasoa bera ere ikusiko genitun.

Ezin ba, zorion osoa lortu, baiñan alaz ere, pozik geunden Naparro aldeari begira... Ez gendun ez Azpiroz'tik bera zijoan ibaya ikusten, bai, ordea, berak sortu-azitako zelaitxoetan jaso diran erri aundi ta txikiak. Perretxiku saillak ziruditen erritxo batzuek, ozo urbil jasotako etxeen teillatu gorriak ikusita; beste batzuk, berriz, menditxoan zabaldutako artaldea, erdian artzaia lez, Eliza ernai. Beste ayek, mendi gora multzoka gudarako prest zijoazten gudariak. Ori bai, guziak txukun eta jantzi ederraz apainduta: orma zuri, teillatu gorri, soro-zelaiaz inguratuta. Arrigarria benetan Atallo'tik gora dijoan lurraldea! Ederragoa biurtzen zun eguardiko eguzki arrek!

Arriturik geunden Intza'ko Dorrean gure inguruko ixiltasuna sumatzean!... Izan ere, ba-zirudian gu bakarrik geundela mendi artan, ez bait genun ez lantegietako adarrik, ez antomobil zar ayen karrakarik edo tutu-soiñurik entzuten, ezta gizonen oyurik, ez eta abereen marrurik... Eguardi-eguardia bait-zan ta lo zoragarri artatik kanpai baten doiñu sendoak esnatu-azi giñun: Tan... tan... tan...

—Ixo mutillak, zion Zubillaga'k. Intza'ko eliz kanpaya duk eta ordu zarrakin ibilli oi dituk eta amabitakoa jotzen ari duk. Esan diagun Anjelusa.

Alaxen, Anjelus otoitz ederra esan genun Irumugarrieta'n. Ederki geuden eguzkia mauka-mauka iruntziaz, eta legortu zizkigun gorakoan aterako izardiak, baiñan ezin an jarraitu, otordukoa ta edariak Igaratza'ko Aterpean utziak bait-genitun, ta ara itzuli bear. Zeiñen errex jesten dan mendian goitik bera! Ordu erdian jetxi giñan 1.427 metrorik 1.000 metron dagon Aterpera.

Bide-erakusle jatorra genun Zubillaga, baita aterpean sukaldari berezia zala ikusi ere. Antolatu egin bear otordu ura, nun eta Igaratza'n! Lendabizi, enselada eder bat —sukaldeko arraskan utzi bai-zitun gorakoan, ardo, edari, tomate, oliaran, esparrau ta melokotoi poteak—, urrena txuleta erreak beren saltxa bereziaz. Ase genitun orratik gure gose-egarriak; baita bapo jarri, termotan eramandako kape ta «Iru-zepa»ko koiñak zarra dastatuz.

Pozik itzuli ere egun eder bat igaro ondoren... Urrengo arte lagunok.

MURUA'R

ADIZKIDETASUN BIDEZ

Amerika'ko Ipar-alde ta Ego-aldeko laterri ta lurraldeetan, eta nun ez?, aunitz euskeldun edo eusko odol ta iatorrizko aberkide zintzo, euskeltzale adoretsu ta eredugarriak arkitzen dira, sorterrirako garramuraz ta euskera aldezko maitasunez, Euskalerrira begira. Egunen baten aldegin eben bai, bakoitza bere zioz. Batzuk mixiolari, beste batzuk guda ondoren sakabanatuak, beste batzuk bizibear latzaren eragozpenez ta ango irabazien uste ta ametsez urrunduak... Or aurkitzen dira mundu zabalean, itzultzeko, etortzeko gogo bizi ta ametsez... Batzuk betiko iausi, eroriko dira ogi-irabazte neketsuaren atzamarretan, baiña, geientsuenak adoretsu ioka ta burua iazoko dabe ta Euskalerriratuko dira egunen batean oi dan pozez. Ta, ba-dira bat baiño geiago aberri miñak eraginda, euskeltzaletasunak eraginda goi maillara iritzi, eldu diranak... lan eta iakintza bidez...

Auetako seme iator, argi bat, Patxi Abrisketa dogu ta, eskerrak berari, gure ekandu, izakera, gure nortasun ta kultura, gure elerti ta gure erriaren barri edatzen, zabaltzen diardu Amerika batetik bestera ta, batez bere, bere ogibidezko bigarren aberria dan Kolonbia'ko idazle ta olerkarien artean. Eusko seme langille kementsu onek, erdera saillean, eusko kutsuzko idazlan ongarri, sakonak argiratu ta argiratzen ari da, aspertu barik, bein eta barriro gure erriaren berezitasunak azaldu ta aintzakotuz. Nik ezagutzen dodazanak izentatzen dodaz: «El Caserío Vasco» «Eugenio de Gamboa y Arrupe», «Los Vascos en la Historia de Colombia», «Disertación Vasca a los Hebreos» ta besteren bat. Laster argiratzeko asmoz dabil El Cura Santa Cruz en América, ta «Los Andra Maris en América» ta beste ensaioren batzuk berak azkenengo eskutitzean diñostanez: «osasunak laguntzen ba'daust».

Berari esker argiratu zan «Kolombiar Olerki-Txorta Euzkeraz» izeneko kolombiar olerkarien poema-bilduma autatuen mami ta azal ederreko idazti gogoangarri bat. Ta, beraren bidez, nik beintzat, ezagutzen dodaz orain Kolombia'ko idazle ta olerkari entzutetsu batzuk: Dora Etxeberri de Castellanos, ta Helcias Martan Góngora. Biok dira olerkari sakon, goi-maillako idazleak, Kolombia'n ez-ezik, mundu zabalean be ondo ezagutzen diranak.

Aldizka idazten dauste idaztiren bat opalduz. Eskuetan dodaz labatik ataratako opil beroen gozotasun atsegiñez, oraintsu artutako Dora Etxeberri'ren «Eterna Huella» ta «Hiroshima» bere poema-idazti saritua. Baita Helcias Iaunak bialdutako «Esparavel» bere zuzendaritzapean argiratzen dan olerki-aldizkari bikaiña ta «Encadenado a las Palabras» bere oraintsuengo olerki-idaztia. Olerki idaztietan aipatuak dira bere «Memoria de la Infancia», «Nuevo Laberinto», «Oceano» ta abar. Olerkari trebe, irudimentsu ta bizia dogu, gaurkotasunaren bide barrietan ondo iantzi ta apaindua, baiña, lengo zuztar zindo ta sendoak ebaki ta baztertu barik indarbarritzen daki olerkera giartsu baten tinkotasun ta garrez. Berbakera aberatsezko eletasun sakonetan murgil ta erreztasun argi ta mamitsuz itzak iorratu ta gogo-barrunbeak gaibidetzen ikasi duen olerkaria. Gaurkoa izateko, barri-girozko olerkari onek ez dauz aurrekoen, aintziñakoen erakunde ta orma zarrak ganora barik oinperatu ta ezezten. Bioztasun apal, gizakorrez orraztu ta lantzen dauz bere poemak, itz arrigarri ta argikorrez gogoaren alderdibide, gai berezienak aztertu ta erabilliz.

Ona emen argibidez, Helcias Martan Gongora'ren poema bat ta nire itzulpen apala:

Encadenado a las Palabras

Voy tras de ti, !oh palabra!
sumergida en la luz.. Sigo tus huellas
luciernaga verbal en las tinieblas.
Continente absoluto en cuyo centro
la voz levanta un surtidor de llamas,
árbol de música sembrado
en la fértil comarca del silencio.
Voy hacia ti, sediento
del fruto esquivo de la verde rama
del paraíso. Todas les preguntas
desembocan en ti, hombre finito,
que en la profunda selva de los ecos
yaces, encadenado a las palabras.

Zure atzetik noa bai, O, itza!
argian murgildua. Zure lorratz ondoren
ipurtargi mintzoa, illunbetan.
Gorputzkera osotsua zeiñen erdian
abotsak iasotzen duen sugar iturri bat,
eresidun zugatza, ixillaren
lurralde aberatsean landatua.
Zuganantza noa atsegindegiko
adar ezeko igali igeskor muziñaren
egarriz. Galderakizun oro
zugan urbil, elburutzen dira
anotsen baso sakonean itzari lotua
etzanik zauden, gizon mugatua.

MUNIATEGI'TAR SABIN

Matsaren Zumua

JEREZ'KO ARDOARI

Gauza txit on asko dira
gure mundu zaar ontan;
baña bat bakarra ere
bear bada ez
ardoa aiñakorikan.
Edan —jakintsuak zion—,
ardoa beti egin bear dala.
Ta ura...
ibaian beera dijoala.
Eskritura Sakratuek,
itzen-itz,
ardoak alaitzen dituala
gure biotzak,
esaten digute berriz.
Ardoak ere munduan
asko dira guztiz onak;
baña gutxi dira, gutxi ere,
Jerez'koaren mallakoak.
Jerez'ko ardo sikuak,
eta bardin usaidunak,
antziñatik lurbira osoan
dira agitz ezagunak.
Euskal-poeta
jator Aita Meagher'ek
orain berreun ta geiago urte
sortuak dira
bertso adigarri auek:
«Erroma'n ta Paris'en
Jerez'en dagoan
ardoaren usaia
daukate gogoan».
Or goien ere, zeruan,
jaiegunetan batezpe,
Jerez'ko ardo maitagarri au
seguru asko edango dute.
Dana dala ta
esanak esan,
ni iltzen naizen
egun berean,
oso gogoko
izango nuke
norbaitek, bada-ezpadan,
ipintzea, adibidez,
ezkutu ta ixilpean,
Jerez'ko ardo
bonbillatxo bat
nere zerraldo-barnean.

ANTONIO ARRUE ZARAUZ

Au dogu Mats-batzeari egiñiko olerki saritua. Antonio Arrue gure adiskide begikoak, sari andi bat lortu dau, olerki onegaz. Barri onek osoan poztu gaitu; olerkiaren gaia, mamia ta giarra, tajuz biribilduak ikusi ditugulako.

Oori dok euskeraz idaztea! Uler-errez ta sakonkiro, zerak esanaz. Zorion, Arrue!

Gure irakurleak olerki au ezagutu dagien, ementxe jarri dogu, atsegin izango yakelakoan.

ZIARZOLO

PARAGUAY GAUR

(I)

Nazio onetan, Ameriketan beste nazio zenbaitetan bezela, gauzak ez dabiltza bide onetik. Askorentzat alperkerian eta narratxkerian eroritako erriak dituzute. Beste askok akats au gutxiten dute, lurralde auetako beroak nor-nai bigunduko lutekeala aitzakia ipiñiaz. Nolanai ere, esan dezakeguna auxe da, «zoritxar batean jausirik bizi dirala». Noiz-nai gertatzen da iraulketaren bat «revolusionsita» bat, eta nun-nai militarra igotzen da agintera.

Baiñan emen ere Stroessener jenerala lendakari egonagatik arazoak ez zuzentzen. Zein da erri orren egoitza? Lenengo artikulo onetan, bere egoitzaren berri, geienik Londres'ko «Amnesty International» Azterketa Taldeak, bere aldizkariaren bitartez emango digu, Paraguay barruan bi urtez azterketan jardun dan ezkeroz. Laburpen batean dijoakizue:

Inglaterra bik ainbateko zabalera du bere lurraldeak. Oro zelai. Ez du itxasorik. Brasil, Argentina eta Bolivia'ren erdian dago, Ego Amerika'ren biotzean. Danera bi milloi biztanle, Paraguay ibaiak zatizten duan bi lurraldietan. Sorkaldean, % 96 biztanle, lurraren % 40 artzen dituztela; Sarkaldean, % 4 biztanle bakarrik zabaldurik % 60 lurraldean, Chaco deritzan lurralde zabal eta arlotean.

Bera da erririk txiroena Ego—Amerika'n. Urtean % 3,2 bakarrik biztanlez azitzen da. Asunción Uriburua, milloi-terdi bat biztanle, beraz nazioaren bostetik bat. Gizaki bakoitzarentzat, urtean, 236 dolar (16.250 pesetas), irixten da errenta. Nekazari batentzat, baiñan, 81 dolar bakarrik igo zan. Lurra, % 75, gutxi batzuen eskuetan dago, % 2,6'en eskuetan ain zuzen. % 2,3 bakarrik dira lur landuak, gaiñerantzekoak lur antzuak. Au ta guztiz ere nekazariak, % 36'k bakarrik dute lurren bat beren izenean. Errenta zergarik ez dago, eta 1970'garrenerako egin zan presupuestotik (82.800.000 dolar) erdia, au da % 50, polizi eta militar betekizunetarako izan da erabillia. Lurgintza da Paraguay'en geiena, eta alaz ere presupuesto ortatik % 2 bakarrik erabilliak izan dira Lurgintza Ministerioan.

Lan-eza, nun-nai. Ganado buruak, 1956'etik 1970 bitartera 5,5 milloitik 4,3 milloira jetxi dira. Eta au izan Paraguay baten diru-biderik nagusiena, aragiak, zura gogorrak, landare olioak, tabakoa eta algodoiak bait-dira bereziki exportatzeko dituztenak.

Onela, gain-beraka, Ipar-Amerika'ra jo izan dute diru eske, zorrak ordainduko ba'dituzte. 1970'gko, Garagarrilla'ren 30'gnean, Erbeste-erriekin zuan zorra 150 milloi dolarretara igo zan.

Asunción'en, au da, uriburua kendu ezkeroz, ea ez da ezagutzen sendadakintza eta onen laguntza, sendagilleeza dago errietan. Gizakiaren lenengo ikasketak, sei urteko ikasketak, sei umetatik batek bakarrik egiten ditu. Uriburuan bakarrik ezagutzen da etxeura, ta artzen dute kañerietatik barna. Orobat tximist-indarra. Eta, alaz guztiz ere, oraindik ezagutzeke ditu urodiak Asunción'ek eta bidezabaletan argiak eta semaforoak.

Naiko beltz dago, beraz, ekonomi arazoa. Ba-dira oraindik erriaren osakizunerako akats geiago, datorren idazkian esateko uzten ditugunak.

OLAZABAL'TAR XABIER



EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI
GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ERRIETAKO BERRIAK

Bilbao

«Uxola»ri.

Onu bat zuri, adiskide: Ez egizuz zure belarriak egunerokoaren truke, jarri.

Asmo ori ereiñik dago ta ernetzen asita. Laster burutuko da.

Belarriak bearreko izango dozuz, bertan jaurtiko doguzan eupadak ta irrintzi bulartsuak entzuteko.

Nik, zu, bapo ikusi nai zaitut gaur arte lez, zeure zudur, zeure okotz, zeure belarri ta txapelarekin; alaitasuna ta irriparrea bastar guztietara daramazuzala. Doe, biturte ori zeure-zeurea bai dozu, ta ez galdu !kontxo!

«Kamiñazpi»ren barririk ez dakit aspaldion. Bear bada «emboscadaren» bat gertatzen jardungo da.

«Basa-Jaun»arekin egin nebazan bakeak. Zurekin be, or orren baten ibilliko nazala uste dot. Egunerokoa azalduko dautsugu beintzat, belarririk galdu bage.

«Kamiñazpi»ri be ez dautsogu Ondarrabi aldeko aize gordiñik kenduko; pozik dabillela entzun dot, ta nire baimena beragan dau, Urrillerarte! Gero... Gabonetan kerixak bialduko dautsoguz bizi-poz apurtxu bat izan dagian. Kerixok urdaillean trabauko ba'litzaizkio, badogu «carabaña»... «merkeabaña».

* * *

Bilbo'ko ostikolari taldeari izena aldatu dautsoe. Aspaldiko urteetan ATLETICO izan dana, emetik aurrera ATHLETIC izango da.

Gazte aroan, neu be sarri joaten nintzan ostikoketara, Athletik jokatzen ebanean. Areik zuazan mutillak! Euren sakeletik atzera-aurrerak ordainduta Bilbo'ren izena goi-goian jartzearren lepazurra apurtzeko gertu egozanak.

Athletic izan, naiz Atletico izan, badakit, bi izenak atzerritikoak dirala. Baiña Atletico izena jarri eutsen ezkero ez da izan emen gauzonik. Ez jokatzaleen aldetik, ez burukideen aldetik; batetik eta bestetik norbait goraldu daiteken arren.

Orain, izena lengo lekura ekartean, biurtuko ete dira gure mutil jokalariak lengo senera? Lepazurra austeko gertuko ete dira, gure aldiko Joxe Mari Belauste lez?

ABELETXE

Getari

III ontan bete dira 450 urte, gure erritar gizon trebe ta aundiak munduari bira eman zionetik. Au dala-ta, Getari oso alai zegon, bertako ta kanpoko notiñez beterik. Egin diran pestak apaintasunez bete-beteak izan dira.

Gogoratzen naiz, orain 50 urte, ze nolako jendetza bildu zan Getari'n. Nere urteak orduan zazpi ziranez, itxaso guzian, gudotziz betea, kaiñoi ta beste tramanduluz tiroka, arraintzale itzas-ontzien txistuak, itz batean, guzi oien dardarakin bazter guziak ikaraz, ori entzutean alako ikara eman zigun.

Sebilla'ko San Lukas Barrameda'tik, 265 itxas-gizonekin, Elakano'k irten zuanean, ez zun izango iru urtera berriro portu ortara emezortzi gizonekin bakarrik elduko zanaren uste aundirik. Bien bitarteko itxas zabal eta, batez ere, Filipinas eta Moluka aldeko uretan gertatutako gora-beraz makiña bat idatzi da. Munduak ordea, beti esan du edo ta siñistu, bira ori Magallanes portugaldarrak eman zuala. Ez det uste gaur iñork siñistuko duanik oker ori, Magallanez zalako ura, Filipinas'etako ugarte batean, bertako indioak erail zutelako. Gero, gure erritar Elakano'k artu zun ontziaren zuzendaritza ta bukatu joan-etorria. Orduko burrukak portugaldarrekin itxas alderdi guzietan, ikaragarriak ziran. Elkano'k ordea, guziak xeetu zitun eta etorri bere etxera.

Gaozen baiñan aurrera: Getari'ko Eliz Nagusiak dar-dar egiten zun bertan bildu zan notintzakin. Goizetik meza nagusia izan zan. Gure Gotzaia emen zan, Bikario Generala, Emeterio Isasti alboan zuala. Au bertako semea danez, itz egin zun, bere erritar Elkano'ren berri emanaz. Ta, apaiz onen berri, eman nai nuke emen, naizta zalantza izan idazteko:

Ba al dakizu irakurle, Don Emeterio onek zer noalatan eman zun bere lenengo meza? Apaiz berri batek, ba-dakigu, besteak bezela nola ematen duten lenengo meza, baiña onek eman zuna oso gogoangarria zaigu. Gure gudan, millaka euskaldun Bidaso'z beste aldera joan ziran. Don Emeterio, orduan, ikaslea zan, apaiz egin naian. Baiona'n jarrai zion bere ikasketari. Ba al dakizu norek lagundu zion? Don Nikasio Larrea izanak. Onek egin zion itz Baiona'ko Gotzaiari, ta Baiona'n asiera eman eta Paris'en bukatu zitun bere ikasketak. Geroz, apaiz izanez, Paris'ko alderdi batean lan egin zun. Ba-ditut oraindik Don Emeterio'n idazki batzuk, neri idatziak Caracas'en nintzala. Ze nolako eskutitz eder eta xamurrak! Onen gogo ta griña bizia, ez ziran txantxetakoak: apaiz egin naia! Ta, bai lortu ere, ta gaur, pentsa, Bikario General degu. Argia bai-da, ta etzun gutxiagorik merezi. Don Emeterio'k ba-zun arreba, lekaime joan zana ta gazterik Kanbo'n il zana. Bein baiño geiagotan joaten nintzan bere illobira, Kanbo'n; nik aiña urte bai-zitun gajoak.

Koruan abestu zuten beste gauz guzien artean, «Elakano'ren Abestia», musika au motrikoar Don Antonio izanak egiña. Aita Eizmendi'ren zuzentza pean, oso ederki abestu zan guzia. Pianoa Don Karmelo Iribar getariko semeak jo zun, Jaen'go katedral ederrean dago pianista. Getari'k apaiz gutxi ditu, baiña bai ospetsuak.

Gure Gotaiak, ain maite ditugun Urdaneta, Legazpi, Loiola ta Jarbier... goralduaz itz egin zun. Aldare inguruan, «Vulkano»ko itxas gudariak zeuden. Itz batean, ura ederrtasuna!

Geroz, Bitorio Matxo'k egindako irudiaren aurrera joan giñan. Guziok dakigunez, irudi ori emakume batena da, besoak zabalik dauskala. Gure gazte denporan esaten gendun: «Baiñan, nola leike jarri olako irudi itxusia, Elkano'ren irudia jarri bearrean...?» Ez dakigu zergaitik izango zan, baiñan irakurri zuk orain zer esan bear detan:

Prantzi'ko errebuluzio denporan, andik Getari'ra lekaimeak etorri ziran. Ain zuzen, irudi ori dan tokiaren aurrez-aurre zeuden. Makiña aldiz joanak gera etxe ortara arrapatzen genitun antsuak edo beste arraiak mojatxo aieri eramatera! Prantzesez itz egiten zuten eta guk tutik ezin ulertu...! Dana dala, egun batez, orra nun joan ziran, igeska-edo... gure mojatxuak! Getariarrak esaten gendun: «Ez gera arritzen, olako narru-gorrizko emakumea jarri diete aurrean-eta, gero iges egin bear!» Lekaime aien gomuta beti izango degu, oraindik bizi geranok.

Guzia emen idazteko luzeegi; bukatu egin bear, alik eta laburren. Enparantzan musikalariak. Eskudero pamatuaren babesean jo zuten. Ondoren «Club Nautico» berrian agintariak bildu ziran. Arratsaldeko lau ta erdietan, Elkano'ren ontzia agertu zan. Barruan amazazpi gizon eta Elkano buru. Sarrera ikaragarria izan zan, eunka ontzi txistoka ta erria zearo txorabiatzen. Sartu ziranean, Elkano lenen, gero gaiñontzekoak, kaira irten ziran. Guziak geldi-geldika Elizara, beren jantzi zikin eta ausiekin. Belaunikatu ziran Elizan eta otoitz egin orain 450 urte lenago S. L. Barrameda'n elkanotarrak egin zuten bezela. Ta, abestu zan Salbea.

Geroz, kaiatik karroza irten zan, erriko bost neskatil politenekin Elakono inguraturik gaiñean. Bostekoak munduko bost alderdiak esan nai zitun. Bata beltza... Erriko kaleak zear Elkano dagon enparantzera joan ziran. An, abestu ta azkenik guzia bukatu zan. Geroko gora-berak; errraren alaitasuna aundia zanez, gaiñontzeko orduak ederki igaro genitun. Urrengo olako pestak noiz? Emendik beste 50 urtera? Nun izango ote gera gu orduan...?

E. OZKIN

Galdakano

ERIOTZA

Iraillaren 6'gnean, Algorta'n il zan galdakanotar Urkitza'tar Sabiñe, Gurtubai'tar Josu'ren emazte argi zintzoa, berrogei ta bost urtedun zala. Gorputza bere jayoterri ontara ekarri eben lurra emotera. Senar eta sendikide guztiei laguntzen dautsegu atsekabean.

TXANGOA

Aurreko bost urteetan lez, aurten be zarbidedun diran 225'en bat adiñekoen txangoa izan da Irail onen 7'gnean, erriko Sendiburu Alkarteak, ainbat bertoko landolen laguntzaz eraldutako ibillaldia. Berau, geyen baten, Bizkai'ko itxas aldetik egin eben, au da: Galdakano'n urten Larrabetzu, Unbe, Algorta, Gaminitz, Armintza, Bakio'n mezea entzun eta Bermeo zear Gernika'ra elduteko. Gernika'n ederto bazkaldu ondoren gure Batzar-Etxe ospetsua ikustatu ta Zugatza'ren azpian egozala danak batera «Gernika'koa» abestu eben, gero bertan ordu batzuk igaroaz, illunabarrean barriz eta pozpozez etxera itzuli.



Atsegiñez ikusi doguz zarrak, euren egikizunak aitatzen. Antolatzailleak ondo dakie jakin be, nondik eta zelako lekuetatik erabilli, euren bizian ainbeste izerdi ta buru-auste izan daben langille zintzoak izandako zaar orreik. Gure zorionak zarrei eta txago-eratzaille adizkide guztioi, ta ea urte askotan orretaraxe pozkiro ikusten zaituguezan.

VENEZUELA'RA

Ia iru illabete bere arreba kutunagaz sorterri onetan igaro ondoren, Venezuela'ra barriz joan da, aldi baten, guda aurretik, ostikolari oso ospetsua ***izan zan Mandaluniz'tar Joseba****, uri artan dituan emazte seme-alabakaz alkartzeko. Zorioneko izango al aiz adizkide zintzo ta euskaltzale jatorra, ta ea barriz noiz besarkatzen garan.*

JAI BIKAIN BI

Esan oi dan lez, jai bi doguz errian, azkenengo urte oneitan Galdakano'ri aomen andia emon dautsenak, erriko Jai Nagusiak aiña edo geyago: Euskaljaia ta Perretxiko Azalpen Leyaketea. Euskal-jai ori, igaz, ezin ospatu izan zan «antolatzailleak» beranduegi *eskatu ebela baimena atxakigarri ipiñi ebelako... baiña aurten, Udalak berak gertatu ditu ainbat euskal-jolas Iraillaren 24'garrenerako: pelota-jakoak, arri-jasotzailleak, aizkolariak, dantzak, txistularien eresaldiak, burditza-agerpen ibilketak eta abar. Ba-litzake, gaztediak nai leukezan lakoak ez izatea, baiña Udal-gizon orrein buruetatik sortu diranak diran esketiño, txalogarriak dira, bear daben ospeaz beteak izaten ba'dira beintzat, eta orretara izango al-da.*

Bigarren jaia, Ziza Azalpen Leyaketra, datorren Urrillaren 15'gnean ospatutzekotan dira. Jai onen gertatzailleak, beste urteetan lez, «Peña Santa Cruz» bazkun goralgarrikoak dira, Erriko Udal eta Bizkai'ko Aurrezki-Kutxa'ren babespean. Eta au be ospe andiagaz ospatuko dalakoan gagoz.

Jai onek merezi dau-ta, datorren astean azalpen andiagoa emongo dogu, bitartean, Leyaketa ontara aurkezteko asmoa dabenak, ziza billa asi leitekez bizkor. Ez dira gitxi izango or agertuko diranak, sari onak dirala jakiten dabezanean. Aupa perretxiko-zaleok, Urrilarren 15'gnean Galdakano'ratu aurten bere!

BASA-JAUN

Zestua

Uda-aldia. Atseden pixka bat artzeko bai garai egoki ta ederra; eta txoko berriak ezagututzeko zer esanik ez, urte guzian ez dugu aurkitzen, uda-aroa baiño egokiagorik.

Maitatzeko leenengo ezagutu egin bear. Esaera au, aspaldikoa dugu; aspaldidanik entzun oi izan dugu beintzat. Orregatik, ongi datorkigu gure erria maitatzeko, lendabizi ezagutu bearra ere.

Joan zan larunbatean, Araba'ko erri zaar batera eldu giñan; eguardia izan eta eguzkiak indartsu berotzen zuan. Erri onen izena, Laguardia da. Errera mendi-bizkarretik ikusten dana, zoragarria, Egia esan, Errera-gaiñetik begiratuta, be-aldean Ebro ibaia, eta onen inguruan erri txiki ta ain txiki ez diranak ikusten dira. Adibidez Laguardia; euskalerrikoa izanagatik, euskera galdu duan erria; benetan tamalgarria!

Baiña euskera galdua izanagatik, euskera aunitz entzuten da, batez ere, giputz eta bizkaitarrak asko ikusten dira: azpeitiar, lemonar e. a. Atseden-aldi bat igarotzeko erri paketsua, apartekoa.

Logroño'tik, Gazteiz'era, Laguardia' tik igaroaz, antxen autobidearen ertzean etxe polit bat aurkitzen da. Bere izena, «Goiz-argi» da; etxe ontan sartzen danak garbi ikusiko du, euskal-kutsuaren paltarik ez duala izango: Biotz ederraren jabe diran Bilbao'ko, Urrutia'tar Joseba ta bere emazte Lorente'tar Miren Gotzone, bere illoba Lakuntza'tar Joseba ta emazte Ines; itz batean, sendi guzia. Iñork ez daki, etxe ontatik igaro gabe, zenbateraiñoko atsegiñ tokia dan.

«Agur» aldizkari ontatik, gure agurrik-sutsuenak, eta laster arte.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Ondarroa

ARRASTE'KO TXALOPAK

Urte guzti-guztian, egunez naiz gabaz, Ondarro'ko portuan beti da mobimentua: gizonak eta andrak karga-deskargan, ara ta ona, kaja-olak ortik eta kaja-olak emendik, arraiña gora ta arraiña bera, diarra an eta zarata emen, beti ekiñean, beti lanean. Izugarrizko mobimentu au, arrasteko txalopak, batez be, emoten dautse Ondarro'ko portuari ta urte guztian emon be.

Bajurako txalopak antxoba sasoian, esate baterako, bizitza aundixe emoten dautse erriari: portu ta lantegietan naibeste jente mobitzen dabe ta lana ugaritu asko. Antxoba «turrunek» erria biztu ta poztu egiten dau igarri-igarrixan, baiña ori antxoba sasoian izaten da bakarrik, iru illa betean gitxi gorabera.

Atuna be oso aberatsa da errirako, baiña atune be gero ta urrunago arraintzaten da ta geixenetan Vigo'n, Aljeziras'en edo Canarias'etan saltzen da. Orregaitik atunak be gaurko egunean, ez dautso gure portuari bizitza aundirik emoten. Gero, negu guztian, lotuta geratzen dira portuan bajurako ontziak.

Arrasteko ontziak, ostera bajurakoak baiño ugariagoak dira ta egunero, astero, amabostero edo ogei egunetik ogei egunera, urte guzti-guztian ekarten dabe gitxi-asko euren arraiña ta beti Ondarru'ko portura ekarri be. Orregaitik, bajurako txalopari ezer kendu barik, gure portuko aberastasunik aundixena, arrasteko ontzietatik datorrela uste dot.

Ondarrutarra izanarren, bear ba'da, eztozu jakingo zenbat diran zeure portuko arrasteko txalopak. Ori dala-ta, ba, Bitor Portu'k emondako zeaztasunekin emen jarten dautsut arrasteko ontzi guztien barri:

Guztiz larogeita amar (90) ontzi dira. Eurotatik;

Egurrezkoak	26
Burdiñezkoak.	64
	90 ontzi

Arraintza lanetarako olantxe bereizten dira:

Bouak	2
Bakak	56
Bikixak	10
Irukixak	4

Ontzi guzti onein artean 16.361 tonelada egiten dituez eta 53.565 zaldiren indarra dauke.

Ikusten danez ontzi asko dira. Aundiak eta indartsuak, gaiñera, azkenengo urte oneitan egiten diranak. Baiña ez da or dana amaitzen. Une onetan beste zazpi ontzi geiago egiten dagoz eta laster izango dira gure portuan. Beraz, Ondarroa'ko portuak, denpora gitxi barru, arrasteko 100 txalopa inguru eukiko ditu. Txarrena, ez dakit danentzako tokirik izango dan.

J. GARITAONANDIA

Basauri

ABESTALDE BARRIEN SARIKETEA

Emen dator barriz, irugarrenez, abeslari gazteentzako eratzen dan leyaketa entzutetsua. Gitxienez iru lagunek osotutako taldeak izan bear dabe, ta orretatik dirurik artzen ez dabenak edo ogibide lez abesten ez daben taldeak izango dira.

Sei abestalde besterik ez dira onartuko, ta geyagorik etorten ba'da, sei onenak aukeratzeko, aurretik, beste nor-geyago bat izango da. Sariak naiko onak dira, edozein abeslari barri zaletzeko aiñakoak. Lenengo taldeari amar milla lauerleko, ta maillaka-maillaka, milla ta bosteun seigarrenari. Izango da baita, zerbait, sei orren artean sartu ez diran beste taldeentzat be.

Epaiketea, ia igaz lez: ale erdiak entzuleak autarkiz emongo dabez; beste erdiak, epaimaikoak. Itzetan epaikera polita da, baiña egiñetan... igaz ez ziran entzule danak oso-lasai atera. Erak geyenetan onak izaten dira, baiña gizonok sarriegi pot.

Dana dala, talde barri ta abesti era askotakoak entzuteko aukerea datorkigu, ta ez da au, ez, gauza txikia.

GAZTAINGORRI

artetxe izanaren oroiz

Urtea bete zan gure ain maite izan gendun Artetxe'tar Joxe jaunarena. Arrituta gelditu naiz, iñork bere oroiz idatzi ez dualako. Il zanean guziok idatzi gendun beragatik, ta ikusten detanez, urtebetetze ontan guziak ixilduta, mutututa gelditu dira. Nik ordea ez det izandu nai, besteak bezela, bide berdiñean jarrai. Orregatik emen nator ta irakurri.

Aspaldi egin zioten bere oroiz batuketa. Zai-zai geunden antzoki bertara joateko. Batzar eder ta gogoongarria! Batzar-leku orretan, Aurrezki Kutxa'k daukan antzokian batu giñan, ugari. Goi ta beak zearo beteak zeunden. Une eder artan, guzion poz atsegin gozoa agertuaz. An bildu giñanontzat gogoongarri izango zaigu.

Artetxe joan zan. Joan arren, ez uste izan betiko ezereztuta geldituko danik. Ez orixe! Bere urteun guzietan olako batuketak egin bear genituke, bien bitartean oroiturik, ta oldoztu, ze nolako gizon on ta aundia zan!

Bere azkenengo liburua irakurri ondoren, ta bertan esaten dituan irakurgai diran izpi goxoak, alako azkurea ematen ziran. «El gran Asombro», euskeraz: «ARRIGARRI AUNDIA», gutxi gora-bera. Bertan dituan iritziak xamurrak eta biotzen maitagarrizkoak, guretzat oso ongarriak izan dira. Bateze, asierako bere ebillerak lantoki bidean. Ikusten zitun bideak, mendiak, sal-erosketako dendak, alkar-izketak eta abar! Kalean zear joate bakoitzean, zenbat gauz entzun, jakin ta ikusten diran! Orrela idatzi izan zun gure Artetxe jatorrak, goxoki ta xamurki.

Batzar eder artan itz egin zuten bere lagun izandakoak; Basarri, Pelay Orozko, Agud, Peña Santiago, ta abarrek, ez dira aztekoak.

ARTETXE'TAR JOXE; GOYAN BEGO!

E. OZKIN

Dimitrios Gotzaiña

KONSTANTINOPLA'KO ELEIZ-ABA BARRIA

ATENAGORAS Abaren eriotzari buruz, lan polita ekarri euskun AGUR'ek, Gallastegi'tar Kauldi'k egiña. (AGUR, 50 zenb.). Orain, nor dan aren ondokoa ta onen barri batzuk emotea, ondo etorriko dala deritxat. Naste apur bat, be, izan da. Ea ba, zer edo zer argitzen dogun.

MELITON gotaiña zan, orain arte, Atenagoras'ek berak aukeratua bere ordezkari izateko azken aldi onetan. Orregaitik, Meliton bera urtengo zala Patriarka barri autatua, uste eban yendeak. Baiñan ez da olan izan. Dimitrios gotzaiñagana yoan dira Sinodo Santuko autarkiak.

Legea da 1862 urtetik asita datorrena; ta oraiñik orain, 1970'ean barriro ukitua izan dana. Lege orren arauz, Ankara'ko gobernuak iru Patriarka-gai aurrera oi dautsoz Sinodoari, onek, iru areitatik bat aukera daian Patriarka izateko. Sinodoko 15 autarkietatik, 12 Dimitrios gotzaiñari yoan yakoz.

Ortik, artu ei dabe susmoa barrilariek, Ankara'ko gobernuak «ezetza» ipinten eutsola bai Meliton gotzaiñari, baita Sinodoko beste kideai be. Grezia'ren aldeko politikea, bereziki Txipre'ko arazo garrantzitsuan, sutsuegi babestuko ebelakoaren bildurrean. Ego ta Ipar Ameriketako grezitar Ortodoxo guztien buru ta lendakariari, au da, Yakobos Metropolitari be, gobernu turkoak ez eutson utzi Atenagoras'en illetetara yoaten. Ez eban an aurrean egoterik izan besteekaz batera.

Ori oarturik eta ikusirik, Meliton gotzain yaunak, Dimitrios gotzaiña begiz yo eban, Patriarka barri izateko, zalantzarik bage; ta autarkiak arentzat irabazteko, zelan edo alan, lan egin eban. Munduko paperak eta barrilariak arriturik gelditu ziran autespen onegaz, Patriarka barria, oraingiño, gutxi entzuna ta ez-ezaguna zalako; ta ganera Sinodo Santuko lagunkideetan gazteena. 1914'ean Istanbul'en yaioa, bigarren maillako ikasteak «Galatasaray»ko prantzes-ikastoalan egin ebazan, ta teoloji ikasteak «Halki»ko monasterioan.

1942'an, 28 urte, abade sagaratua izan zan: ta ordutik oraintsu arte, Iran eta Turkia'n, laterri biotan igaro dau bere bizitzea, gogoen aldeko animatar zeregiñei osotoro emona. Aurtengo Garillaren 18'an, «Fanar»era goretsia izan da, Patriarkearen ondoko lantokietan lan egiteko. Guk Erroma'n «Batikanoa» daukagun lez, ortodoxoak be, Konstantinopla'n leku berezia oi dabe, «Fanar» deituten dautsoena. Eta an dagoz ortodoxo guztientzako patriarkadoaren lantokiak eta abar.

Asko ikusia ta ikasia gogoak zaintzeko lanetan. Turkia'ko grezitar baillerak, ordea, dira ortodoxoak diranak. Eta turko ta grezitarren artean burruka gogorrak oi dabiltz geienetan, bereziko Txipre ugartean. Grezitarrek ba-dakite euren aldezlerik bizkorrena ta sutsuena, Demetrios urtengo yakela.

Baiñan ortik ganera, beste eginkizun bi be, ba-daukoz benetan andiak eta garrantzitsuak. Bata, Konstantinopla'ko Patriarka izateari yagokon deduzko lendakaritza, munduko ortodoxo oroen ganean eroatea ta erabiltea. Bestea, Erroma'ko Eleizagaz batasuna lortzeko, bideak artu ta lan egitea. Zelan bear egingo dauan eginkizun bi orreitan, bigarrenean batez be, orra or untzea.

Atenagoras bere aurrekoak, zelango lana egiten ta zelango guraria agertzen eban gai onetan, munduan ez da iñor ez dakianik. Atenagoras'en animatar oiñordeko dan Meliton gotzain yaunak, gogoz ta biotzez lagunduko dautsola uste da barrilarien artean, Patriarka izatetik yatorkon eginkizun onetan, beti aurrera egiteko, Atenagoras'ek berak gura-gura eban legez.

Dimitrios leenengoa, Patriarka-aulkian ezarri zanean, leenengoz, 6'garren Paul A. Santuak, Ankara'ko Pronuntzioaren bitartez, an aurrean egoenak. Bere alde sutsuki otoitz egingo dauela adiarazo ondoan, onako urrutidazkia igorri eutson: «Erroma'ko gotzaiagan (au da 6'garren Paul beragan) anai maitekorra aurkituko dozu, zure aurrekoak ain gartsuki gura eban batasun osoaren egunera eldu arte beti aurrera yoateko, gogo biziz irrikitzen dagoena».

YURRE'TAR YULEN, A. K.

Aita Santuaren Atsekabeak

URTEURRENA.—Bere Aitasantutzako bederatzigarren urteurrenean, VI Paulo'k, lenengo Aita Santua Kepa deunaren egunean ospatu dau. Egun orretan Batikano'ko eleizan ospatu dan eleizkizunean, ainbat kardenal eta amar milla lagun bertan zirala, alde guztietan biotz-zarrada andia egin daben itzaldi luze bat egin eban, gaurko Eleizaren egoerea dala-ta samintasun andia agertuaz.

Eleiz-Batzar Nagusia Yaungoikoaren bezuza eder bat izan zala esan ondoren, ango irakatsi ta aginduak ardura ta alegin andiz aurrera eroaten lan egin arren, samintasunez beterik argi ta garbi azaldu dau, tamalez okerrune batzuk galerazoten dabela.

—Berak diñoanaz, «Eleiz-Batzarraren ostean uste izan zan Eleizaren edestiarentzat egun eguzkitsu bat izango genduala, eta ordez, egun laiñotsu bat eldu da, ekaitz eguna, illuna, erantzukeriz eta eztabaidaz betea».

Igaroko urteetan Aita Santuak egin dituan eundaka itzaldietan, bere tamala sarritan agertu izan dau, zoritxar andi au dala-ta, baiña ain argi ta garbi ez.

YASOERA ONEN ERRUA?—«Zirrikatuen batetik, —diño—:
Yaungoikoaren etxera Satanas'en kea sartu da». Orren errudun? Izatez-gaiñetiko arerio indartsu bat sartu da munduan Eleiz-Batzarraren ondoren onuratsuak galerazteko, eta itoteko. Bere izena, Kristo'k Ebanjelioan ainbeste bidar aitatuten daben gizonaren arerio ezkutua da: deabrua. Eleizagan uste osoa ipiñi bearrean, egizko bizitza bidea berak erakusten dau-ta, izparringi ala gizarte bazkun batetik itz-egiten dauskun igarle mundutarrai yaroman egiten yake; gure barruan ezbaya sartu da, argitasunarentzat zabalik egon bear leukien leyoetatik: yakiditik. Eta yakidia, Yaungoikoagana urreratzeko egiak irakasteko da eta orren ordez, ezbaya yakitunak zabaltzen dabe, burua makur esanaz: «Ez dakit, ez dakigu, ezin yakin geinke»:

GUZTIA MUNDUTARTU?—Ortik sortu da gaurko gizarte ta gizona ziñeste arazoetan otzitutea, goiko gauzakaz artu-emonik ez gura izatea, goi eta beko gauzak mailla bardiñean ipintea, gizonak eta gizarteak Yaunagaz euki bear dituezan artu-emonak ukatzea, kristiñau eta ez diranen artean alderik ez dagola esatea, ta goiko eragipena alde batera itxita, gizona «yaungoiko» egitea. Egia, gauzak gizonarentzat egiñak dirala, baiña egi andiagoa gizona Yaungoikoarentzat egiña dala. Gauza bat da larregikeriak kentzea, eta beste bat, beste larregikeri batzuk irakastea. Len gizartean abade usain geyegi egoala ta oin azterrenak be kendu gurarik? Ori ez da II Batikano'k irakatsi dabena. «Gaurko eguneratutea» da gauza bat eta beste bat, goikoz bera gauzak ipiñi gura izatea. Amaikatxo zentzunbakokeri irakatsi da, II Batikano'ren izenean! Barrizkundea bearreko da, baiña norbere barrizkundetik astea bearrekoago!

EGIA NON?—Kepa deunak argiro diñosku: «Kristiñau erria, Yaungoikoaren erria da. Kristo'k erositakoa, berezia, autua, Yaunagaz berarizko artu-emonak izan bear dituana»; Mundutar gauzeri be goitar sentzuna emon bear dautsona, Paul deunak esaten eban au gogoan artuta: «Naiz yan naiz edan naiz beste edozer egiten dozuela egizue Yaungoikoaren aintzarako». Askori baiña entzuten yake: «Eleiza geu gara» arrokeriz esaten daben asko ikusten doguz lengo lepotik buruagaz, oker dagona zuzentzeko atzamar puntea be eskeñi barik. Eleiza geu gareala? Ba, barrizkundea geugandik asi dagigun!...

ZER EGIN?—Ziñestean «sendo» yarraitu, ta sakondu; gure Eleizagan uste osoa ipiñi ta sakondu; eretxi zorrotz eta ezbai guztien gaiñetik yokatu; kristiñau lau eta apalen ziñestean eutsi, «Eleizaren zentzuna» ez galdu; eta Aita Santuak gura dabenez kristiñau-batasuna indartu, Eleizea itxi, iges egin eta, bear ba'da, iñoiz be, bateatuak izan arren euren deyaren ezaugurarik euki ez dabenagaitik, otoitz egin, guztiok Kristo'gan bat izan gaitezan.

GAMA

Idaztiak dun Garrantzia

Ludian telebistak eginduan sarrera, nolanaikoa ez da izan. Baiña ala ta guztiz ere, irakurtzailleak ez dira gutxitu, irakurtzeko zaletasuna gutxitu bearrean, alderantzizko bidea artuaz, gaur-egun geiago irakurtzen dala, esango nuke.

O. N. U.'K urtero olako gora-beeraren zerrenda bat argitaratzen du; eta 1969'go urtean argitaratutako aldizkarian, esaten digu: 1968'go urtean saldutako telebistak 22 milloi dirala; orain amabost urte baiño, zortzi bider geiago. Bestalde, 1968'go urte berean, 487.000 idazti berri argitaratu ziran: amairu urte atzera begiratuta, 100'dik, 70 liburu geiago idatzi dira.

Beste bizi-eraen antzo, arlo ontan ere, ez-berdintasun aundia ta tamalgarria nabaitzen dugu. Gai onetan ere, berdintasuna ez dago bear dan bezela banatua: ludi ontan bizi geranetik, talde txiki bat bakarrik gozatu ta baliatzen da.

Ludi ontako 3.500 milloi biztanletik, telebista, irrati, idazti eta abar, aurrerapen auek ustiatzen dituztenak oso gutxi dira. Adibidez, 1968'go urtean, mundu guzian argitaratutako liburuetatik, 100'dik 44, Europa'n bakarrik argitaratu ziran. Zer eta nolako aldea dagon ikusteko, begiratu besterik ez dago; argi ta garbi dakigu, Europa'n munduko biztanle guziendik, 100'dik 13 bakarrik bizi gerala.

Adibidez, Afrika'k, 100'dik 10 biztanle ditu, eta 1968'go urtean, gutxi gora-beera ludi guzian argitaratzen diran liburuetatik, 100'dik 1,6 idazti argitaratu zituzten; eta Asia'n urte berean, bi erri aundi diralarik, liburu asko argitaratzen dituzte. 1968'go urtean, ludi guziko liburutatik, 100'dik, 20 argitaratuak izan ziran.

Paris, New-York edo Amsterdam'go liburuetegiak, mota guziko liburuz beterik aurkitzen dira: baiña, oraindik aurreratze-bidean aurkitzen diran errietan, ez da berdin gertatzen. Erri auetan, idazti palta aundia nabaitzen da. Asia'n 100.000 biztanlentzat, bost idazti argitaratzen dira; eta Afrika'n zenbaki onen erdira ere, ez da iristen.

Itxuragabeko gauzarik ez nuke esango, aurreratze-bidean aurkitzen diran erriak, 100'dik, 80 dirala; eta erri auetan idazti palta, betiko jakiñezko gaitza dala. Bestalde industri ta lantokiaz ongi dagozen errietan, idazti paltarik ez dutelarik; irrati, telebista, zine eta abar'egaz, jolastuaz, jakinduriaren jabe egiten dira.

Ala izanik, aurreratze-bidean aurkitzen diran erri beartsuei, gure laguntza eskeiñi bearrean gaude; gutxienez, idazti auen bitartez esnatu ta jakintzaren jabe egin ditezen.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

AGVR

III URTEA
56 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - URRILLA - 7

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

URI ATSITUAK

Lur gaiñean gizonak ugarituez doaz eta, lengo arazoak gitxi ba'litzakez lez, egunoro arazo barriak sortzen jakuz.

Aspaldiko izparringietan uri aundietan sortzen dan atsaren arazoa agertzen jaku. Eta ez uste izan arazo txikia danik.

Lantegiak, batez be eskualde batzutan, pillatu egin dira, esaterako gure Bizkai'an. Eta lantegiak pillatu ezkero bizilekuak be pillatu egin bear, nora zabaldu asko be Bilbo'k ez eukan eta. Arazo barriak etorri egin bear. Euren artean baita atsaren arazoa be.

Urietako ats onek sorburu asko ditu. Berebillak, batez be «gas-oil»az dabiltzanak; lantegiak eurak, ori asmetako Durango'rantzara joatea naiko izango da; arnasea bera, zugatz gitxi dagon tokietan aizeak eta ibilketak ateratzen daben autsa; ke-zuloetatik urteten dauan suaren ondorena... Asko dira urietako atsaren iturriak.

* * *

Ba dabiltz arduradunak, ururik aundienetan batez be, ats-iturriak kentzeko lan sakonetan. Eta ba leiteke zerbait lortzea.

Atsa zabaldu ez daiten arduratu, bein zabaldu ezkero urtenbideak emon, zugatzak uri-barruan eta inguruetan ugaritu, ta abar... bearrezko alegiñak izango dira urietan bizitea al dan gauzea izatea nai ba'dogu.

Bide orreik artuta be, urietan bizitea geroago ta latzagoa izango da, batez be birikietan-edo, ezelako gaizorik daukenentzat. Urten egin bearko dabe, eta aize garbiagoa dagon lurraldeetara joan. Ba leiteke orregaitik izatea, Errioja-aldera edo Burgos-aldera edo Santander-aldera joaten garanean ainbeste Bilbo'tar euren berebilletan ibilten ikusten doguz: aize garbia gura, aize garbia bear!

* * *

Beste gauza askotan zori txarreko izan ba'dira be, onetan baserritarrak zorioneko izan jakuz. Antxe bai zugatzak ugari, kea ta atsa urri, aizea garbi... Noizean bein korta-atsa izaten ba da be, basoetan eta soloetan bedarrak eta lorak emoten daben usain gozoa ugaria da.

Eta au konturatu dabe urietako aberatsak be, ain ketoak be ez dira-ta.


Zer jazoten da orain? Baserritarrak euren lanetik ezin bizi, eta uriko lantegietara joan bear, Lenengo gurasoak, baserrian bizi dirala. Gero seme-alabak, bertan etxe barria erosi, lantegi ondoan eta baserria itzi, eta uria.

Urietako aberatsak, ostera, euren berebil ederrak artu ta baserrira. Asi dira baserriak erosten, gero ederto ipiñiko dabez euren ugerlekuak eta euren eiza-tokiak dituela. Eta gero betikoa: baserritar gizajoak uriko egingo dira ta ango atsak arnasaz barruratuko dabez, uriko jaun aberatsak baserrietan polito biziko dira.

Ez uste izan au amets utsa danik. Ikusten doguna da. Begiratu Unbe'ra, edo Laukariz'era, edo Gorbei'ko aldapetara. An ikusiko dozuez baserriak erdi utsik eta bizileku ederrak eginda edo egiten.

Baserritik lantegira joatea bide luzea ei da. Denporea ta dirua galtzen ei dira. Urietan jolastoki geiago ei dago, bizierea, batez be andrentzak, pozagoa ei da... ta milla atxaki. Baiña aberatsak aize garbi billa, ta txiroak atsa be artu egin bear.

AGVR



Atsa, kiratsa edo progresamentokoen aurrelariak esaten zutenez: Qué ke!

GOIZ-NABAR

Goiz da. Egun sentiko dirdaia asmetan da alderdi guztietatik. Izadia, egia dariola dago. Zentzunak, edertasun au artu-alean, ditut; baiña, an, barrurago, beste zerbait asmetan dot, ixillik, itz dagistana. Banan-banan, galdetuko dautset zentzun, biotz ta adimenari goiz onen barruan zer dagon. Nor dago giro onen muiñean ni poztuten; maitasunaren biotzean nor dago maitasuna sortzen; jakituriaren argi artean nor dabil argi egiten...

Giroaren giroa ederragoa ezindakoa dago. Bizia dario izadiak alderdi guztietatik. Begiak begira dagoz aspertu eziñik. Bedarraren dizdirak, zugatzaren sendotasunak, orriaren orlegiak edertasuna, maitasuna, jakituria agertzen ditue. Ikusgarri ain arrigarriak arrituta nauke.

Bat-batean, galderarik barrukoena datorkit miñera. Bizi ta edertasun ori, nundik artu dituzue? Arriak, zugatzak, bedarrak, ideak, era batera, asi jataz itz egiten. Aparteko edertasun a estaldu eziñik, euren Egillea goratu nai dabe. Nire izatea ez da nirea, diño, zugatz lerden ederrak, nire biziaren sustraia nik ez neban sortu. Azi txiki batetik sortu nintzan, baiña aziaren barri neuk ez nenkielarik. Egillea, aurretik ebillen. Jakituna zan iñor ez legez, ta ona era batera. Aren ontasunak ez dauka amairik. Nire barri ba-ekian ta bere maitasunez sortu nindun eskar utsean. Niretzak nire bizia misterio-eskutua da, baiña Arentzat ez. Beregan nindukan jakituriz ta maitasunez ta Berak nai bezela sortu ninduan.

Txikia nintzan, sorkeran, baiña, bakarrik ez ninduan itzi. Lurra basoa, argia, ura, aizea bizibide ta sendagarritzat emon eustazan. Geroztik ni, pozez, bizi izan naz basoaren lur mamintsuan. Janaria, edaria ta arnasa, aske aske, artu ditut ezer egin barik. Guztia, duban, artu dot, ez gizonak emonda, ixilik dagon Egille on arek baiño.

Nire izatea gizonen jakituriz sortuta ez dago. Gizonak nire gerizpean gorputz nekeak arintzen, pozik, egon oi dira. Egille ez jataz, neure onaren artzaille bai ostera. Jakituriz beterik dago ene bizitza ta gizona nere bizitza zer dan ikasten dabil. Beste jakitun aundiago Arek sortu dau aritzaren bizitza ta edertasun au. Egunero egunero, gizenki, irabazten noa. Lurra artu dot amatzat, aizea arnasatzat, eguzkia argitzat. Ta nire goiburu nor izango da? Len, sortu ninduana, ta orain, bizia damostana.

Aritza nai artea, gogoz, zakustedaz zeuen biziaren arloan. Gizon jakituriak ez gaitu egin, ta egiz, gizonei ezin emon geinkioe, gu sortzeko ez daben almenaren jaubetasunik. Zoritxarrez, lapurretarik aski dabil gizonen artean, baiña guk geure egizko Egilleari zor dautsagu gure izatearen jaubetasuna.

Beste zentzun bat, gora goraka, ari jat izadi samur onen aurrean. Usaimena arduratu da bere usain lege bidean. Sasiak, bedarrak, zugatzak usain eriotan dagoz, euren lurrin eztia gizadiari eskeintzen. Ta nire usaimena soratu bearrean dago sagastiko zugatz artean. Landea ta alboko mendia eguzkiaren printzetan, pozkiroz, dagoz gozamenetan. Izadiak zabaldu ditu bere erraiak ta usaimenak, artu alean, asmetan dau lur kutsua, zelai usaiña ta mendiaren kedatsa.

Udagoieneko giroa asi jat, jakituriz, izketan. Ederra, eztia, usaiña dario. Nundik artu dozu lurrin gozatsu ori? Egiz, dirautsut, jakitunak niregana datoz urin osakai billa ta lurrin gozoak batzen. Gizonen jakituriak ez ginduzan sortu. Maitekiro, ixiltasunean dago ontasuna ta indarra, berez dana. Gure Egillea ez da besterik, bere izatez a berbera dana baiño. Lurra ez da, sasia ere ez. Ona berez dana; beti maitatzen dagoana, jakiturizko nortasuna daukana da gure Egillea. Bere ontasunetik damosku usain atsegin au gizadiari eskeintzeko.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

NASTERIK EZ!

Uda euritsu onetako oparrak amaitu dira. Eguzki askorik ezean, an edo emen, aize garbi ta osasuntsu apur bat arturik, txori alaiak bezela etorri jakuz ikastoletako gura umeak. Gu txikiak giñanean baiño pozago doaz gaur umeak andereiño barriak ezagutzera. Izan ere, giro gozoagoa da gaur ikastoletan, jolastuaz, igarri barik, ikasten dabe gure umeak.

Euskerearen etorkizuna ikastolak dirala entzuten da nun nai. Gu bere, iritzi ortakoak gara baiña ez oso-osoan, edo obeto esteko, ikastolak ez dirala naiko, uts-utsean. Etxe bakoitza ikastola bat izan bear da. Ikastolako euskaldun giroa etxeratzen elegindu bear gara. Zelan? Euskerarik ez dakiten gurasoak euskerea ikasten asi, ta alperrik galtzen daben denpora luzeak orretarako artu. Ez goaz erreza danik esatera, baiña len bere iñoiz esan dogu: illean bost milla laurleko geiago irabaziko ba'litzakez...

Etxeko naiz sendiko euskereagaz batera, erri barruko ta auzoetako izkuntzea indartu bear dogu. Au bere len esandakoa da: Gure ustez, gaur, euskal errietan eta baserrietan egiten dan euskerea galtzen ba'da... «gureak egin dau». Guk ez dogu izkuntzaren berbizkundean siñesten; olako amesak edo demagojizko esaerak «berbizkundeetan» siñesten ez daben sasi-intelektualarenak dira; gizonaren edo errieren berbizkundean, alegia. Baiña zoritxarrez, olakoak doguz edo daukiez, batzuk, maixutzat!

Dana dala, ikastolea, gure ondasunik ederrena bezela zaindu ta gorde bear dogu. Ikaskintzarako lege barriak, estuak dira... baiña beteko doguz. Al dan neurrian gaiñera, gure umeen eziketea onena izan bear litzake, zergaitik ez? Guraso asko, euren umeak EGB ori asi bear dabenean, kilikolo jartzen dira; ez dabe bear dan aiña konfintza izan... baiña kezka ta bildur orreik uxatu bear doguz. Zelan? Gure seme-alabak ikasi dabena agertu ta eureri erakutsita.

Beste alde betetik, ez du ikastoleak ezertariko nasterik bear. Naiko da gure umeak euskereagaz, euskal-nortasunagaz eta gizabideegaz jabetzea, ta ori izan bear da gurasoak eta irakasleak, bat eginda, aukeratu bear daben elburu bakarra. Ikastolea ondo eratuta ba'dago, umeak eta andereiñoak pozik izango dira. Gurasoak ez dogu ukatuko diru laguntzea, al dan neurrian beintzat. Ondo ezagutzen dogu andereiñoaren lan gogorra: alde batetik eziketa osoa, bestetik izkuntzaren zailtasuna, orregaitik goragarriak diran neska, emakume ta gizon oiek, gure nortasunaren giltzdun oiek, gure laguntza osoa merezi dabe.

Orregaitik, lengo baten entzun dogunagaz kezkatu gara. Eleizapean dagoan ikastola baten andereiño mordoska bat batu dabela norbaitek. Zertarako? Legetik kanpora, Al Capone'ren antzeko sindikato bat osotzeko; bakoitzak, illean, 250 laurleko emon eta bi edo iru «arduradun» azke izateko. Orrek astinduko ei-ditue gorasoak bear dan aiña ordaintzen ez ba'dautse, orren gain izango ei dira ikastolen arteko artu-emonak eta abar.

Ba, guk, olakoeri EZ esaten dautsegu. Gure andereiñoak ez dabe olakoen «laguntzarik» bear. Ikastola bakoitzean, gurasoak dira arduradun, eurak dira umeen eziketaren jaun eta jabe. Andereiñoen lan ederra ordaintzeko gertu egon bear dogu, euren eskuetan gure umetxoak itziaz... baiña nastatzailleak, kanpora!

Andereiñoak eta irakasleak, gurasoen ordezkariak dira umearen eziketan. Gurasoak ez dakigu, batzuk, beintzat, irakasten, orretarako eroaten doguz ikastolara, orretarako izten irakasleen eskuetan. Baiña ez dogu bear nastatzaille «profesionalik» irakaskintzatik, aparteko nastatzaillerik. Jolasean ibilli nai duanak billatu beiz jostailluak, ez baiña gure umeak jostaillutzat! Gaurko giro negargarri onetan, naikoa ikasi dogu, ta ez dogu bear, auzokoaren umeen odolarekin loditzen danik; eskondu beitez, edo ez, eta euren umeak «experientzi» barrietan azi ta ezi... gure antzera, guraso geienak, euskalduntasuna nai dabe gure landarentzat; ortik gorakoa geure eskuetan dago ta ez iñorenean. Argi dago ez da?

ARENAZA'TAR JOSU

GOIZ-ARGI'TIK

Arantzazu'ko gau-ibillialdiak Gogoratuz

(APAIZ BATI)

Udara-udaran gaudelarik joandako urte askotan Arantzazu'ra sasoi ontan egin oi ziran zorioneko «Martxa» edo gure mutillen gau-ibillaldi aiek gogoratzea, ez da batere arritzekoa.

Euskalerriko fede-bidean zubi eder bat erori omen zan, «Martxa» aiek galtzean. Eta zuk ezin dezu gau aietako fede-giroa eta otoitz-soñua aaztu.

Arantzazu'ko gau santuak eta Lurdes'a bein lau milla mutillekin egin genduan peregrinazio eder ura!

Eta, penaren penaz, ea dana galdu al dan, galdetzen didazu. Ez ote dagon alako sinismen-billera aundi ta eder aiek berritzerik?

Beste askok ere, zuk bezelaxe, itzegin digute, asi Donosti'ko Obispo Jaunarengandik eta bai erri-apaiz oiek eta bai Arantzazu'ko fraile batzuk ere.

Zer gertatu zan? Zergatik galdu ain ongarri genduan oitura? Ez al-dago «Martxa» ura berritzerik?

Ara or zuk egiten dizkidazun galdekizunak. Eta ara emen nere erantzun batzuk.

Azkenengo ibillaldietan beti larri genbiltzala, ba-dakizu. Agintariak baimena bein ukatu ta urrengoan oztaozta emanaz zebiltzan. Salakuntzak ere ba-ziran.

Eta, bestaldetik, giroak, adiñak eta beste gorabera batzuk erretiratu gindezela eskatu ziguten. Gañera, gure ordez beste gidari gazteago batzuk azalduko zirala, uste gendun. Eta etziran nunbait azaldu, oiturari jarraipena emateko.

«Martxa» ura galdu egin dala, diozu. Urte batzutan utzita egin dan oitura bat, berpiztu egin leike eta, egoki ta bidezkoa baldin ba-da, berritu egin bear da.

Urteetan Arantzazu'ra egin izandako Gazteen Martxa ura egoki ta bidezkoa ZAN. Orain amar urte egiten zana ondo zegoen. On asko egin zuen.

GAUR, ordea, ibillaldi ura bera, egin oi zan bezelakoa, elitzake bearbada egoki ta bidezkoa izango.

Baña —aldian aldiko ERAK galdu, il edo desegindu egin oi ba-dira ere— azaleko era oien barruan zegon muiñari ta gauzaren balio sakonari bizirik eutsi bear zaio.

Arantzazu bezelako santutegi ta otoitz-lekuetara alkarfedetuz erromes joateko oitura ez da galdu bear.

Nola joan, ordea?

Erromes-espiritua bear, lenengo. Ankak eta gorputz osoa erromes. Nekea laguntzat artuz. Atsegin goxo ta errezak zapalduz. Pobretasunarekin uztarturik.

Baña peregrinazio-kutsua joanean, dijoanaren espiritualdean, ikusi bear da batezere. Alako bizimodutik, alako mentalidadetik, alako izakera txepel edo-ta gaiztotik erten eta benetako egizaletasunera eta benetako zuzentasun zintzora joaten alegintzen danak... orrek egiten du beti ongarri izango dan erromes-bidea.

Alkar-fedetuz joan bear da, ordea. Banakatasunak ez du emen balio. Fededunok ezin gindezke bakarki ibilli, alkarri eskua ta fede-bizitza artu-emanaz baño. Jokaera ortara beartzen gaitu egizko erromes-bidegiteak.

Orrela dalarik, millaka askoz osotutako jende-multzo aiek, ez genituzke gaur bilduko. Ezta era artan gaur bildu bear ere.

Talde txikiagoak egin ditzagun eta —gau bateko lanari begira egon gabe— urteak zearka bein da bider landu ditzagun, batezere persona elduentzako antolatu bear genituzken katekesisikastaroetan. Datozenak baitaatu-aurreko kristau-gaiak bezela artu ditzagun. (Ez al-dira alakoak gure gazte geienak?). Eta beren artetik sortzen diran jakinbearrak eta ekintza-gogoak Ebanjelioz argitu ta zabaldu ditzagun.

Eta gero, an-emengo talde txiki oiekin erromes-bideak tapa-tapa bete ditzagun. Istillu ta zarata gabe. Umiltasunean eta desertuko pobretasunean.

Biderako izketa-gaiak aukeratu ta prestatu egin bear. Talde txiki bakoitzak izketatu ditzan.

Eta, ibillaldiaren elburu dan leku artan, danon arteko batzarrean, bizi geran une-aldi ta tokirako, erabakiak billa ditzagun, beti Ebanjelioa gidaritzat arturik. Kantua ez baztertu. Ezta otoitza ere. Eta an egin bear benetako Eukaristibatzarra ere.

Esperantza berri batzuen pozak an jaio bear biotzetan! Taize'n zabalkiro gertatzen dana, zergatik ukatuko dio Jainkoak Euskalerriko mendi-alde batean umilki biltzen dan taldari?

Baña, ortarako, gidariak bear. Batezere beren burua Ebanjelioari osoki emanak diran gidari oiek bear! Urte guztiko lan ixillean jardungo diranak, taldeak biltzen, osotzen, argitzen eta bein da bider batzen aleginduko diranak. Nun dira apaiz oiek? Nun fraile gazte berri oiek? Edo-edo —gure lenengo lanak albora utzita— fabrikak irentsi ote zaituzte guztiok?

Ez ote genduke, geurok lenengo, Sinai-mendi batera igo bearko, zurrunbilloan itotzen dabillen Erri bat gero ongi zuzentzeko?

A. AGIRRETXE'K

izen nagusien idazkera

Ez dakit zergaitik sortu diran oraintsuko aldaketa batzuk. Obeto esan, ba-dakit zergatik eta zertatik jaio zaizkigun zenbait aldaketa eta naaste-borraste.

Gai mugatu bat arrotu nauke oraingoan: Izen nagusiak euskeraz jokatzerakoan, nola idatzi?

Oraintsu artekoan —eunkada edo mende ontan beintzat!— gazteleratik eta frantzeratik beste gisa batera idatzirik ikusi izan ditugu. gurean. Ezaguna zan idazkera ori euskal-irakurle oro eta guzientzat.

Simon'i, Koldo'ri, Andoain'dik, Tolosa'ra... e.a. «Zergatik, ordea, orrela bereizi? Beste izkuntzetan ez dituzte bereizten». Onela mintzo dira gaur zenbait iraultzaille.

* * *

Arrazoi polita! Beste zenbait izkuntzetan zertarako bear dute ezer, izen nagusiak bereizteko? Berenez dituzte bereizirik. Beste izkuntza askok eta askok ez dute atzizkirik. Zeatzago esanda, izenjokuetan ez dute atzizkirik; izenjokuetan ez dute izen nagusia batere jokatzen. Gaztelaniaz, adibidez.

Ez dute izen nagusia jokatzen eta ez dute jokatu bearrik. Naikoa dute, ain zuzen, itz berezi bat izenaren aurretik ipintzea: «a, ante, cabe, de, desde...» Eta, beste gabe, kito!

Gurean ez da berdin. Gurean izenari berari erasten zaizkio atzizkiak: «ren», «ri» edo «i», «entzat», e. a. Eta ain juxtu ere, orretxegatik sortu zuten tarteko era jakin eta berezia: izen nagusia eta atzizkia, biak elkarrekin erdilotu eta erdi-bereziaz.

Esate baterako: **«Telex' en»** esatekoan bezela, izen nagusiari lotu bai, baiñan zearo erantsi gabe. Orrela, izen nagusia argi eta garbi gelditzen da bere osoan eta «nagusian»; osorik gelditzen da bere «berezian». Begitatik sartzen da, orrela, izen nagusiaren nortasuna.

* * *

«Baiñan bai zera! Gaztelaniaz ez da onelakorik! Gu zertan ibilli bereizkerietan?» Onela-moduzko pentsakerak etorri diranean eta nagusitzen asi, orduan akabo! gure euskeraren bereiztasunak!

Ego-aldetik goruntz datozkigun aizeak arrotu diran ontan, leendik naiko erabaki ta eta ezarrita zegon guzia, zilipurdikatu bearrezkoa zan. Eta ortantxe ari dira ez gutxi.

Aspaldi asi ziran Arantzazu aldean; artean iñungo erabakirik etzan; artean etzan ez Baiona'ko eta ez Arantzazu'ko «erabaki» jakintsurik. Baiñan asirik ziran leengo bideak moztutzen eta «berriak» ebakitzen. «Lau Ebanjelioak» liburua atera zutenean, «era berrian» idatzi zituzten izen nagusiak: «Jesus-en... Maria-ri..., e. a.

Billakuntza arrigarria, idorokuntza zoragarria! Apustu egingo nuke, Arana-Goiri zanak «Kanpion-en, Lukas-i» idaztea erabaki izan ba'lu, iraultzaille berri auek, baietz aldatu! Zertatik ote datorkie zenbaiti Arana-Goiri zanarentzako aserrea?

* * *

Ba-da beste «erabaki jakintsu oietako bat ere: «Izen nagusiak ezagunak diranean, ez dago bereizi bearrik: Keparen, Tolosatik, e. a. Ezezagunak diranean, ordea, marraz bereizi bear dira».

Orra, ordea, «txokokerien» etsai diranak, oraingo ontan txokokeri bildurgarrian erori! Idazten duan bakoitzak ezagutzen dituan gauzatxoak, aiek era batera idatzi. Beste idazle batek ezagutzen ez dituanek, berriz gaiñontzeko guzientzat ezagunak ba'lira ere, ez-ezagunen gisa idatzi bear.

Eta nork erabaki bear du noiz zer-nola? Onela bai datorkela ugaritasuna, amaikatasuna eta millatasuna! Idorokuntza zoragarria ez baldin ba'da, gero!

Zorioneko marratxo edo zubitxo orrek ba-du bere egitekoa: bi itz elkartzea. Bi itzen arteko zubi izatea, alegia: bakoitzak bere jatorria gordeaz, baiñan elkarturik mami edo esanai berria dutenerako, aukerako bidea.

Ikus, arazo oni buruz, Satrustegi jaunak «Principe de Viana» aldiskariaren 73'gn zenbakian dakarrena, «ARNAS-BERRI» itz elkartua dala-ta. Ori bai dala betebetean marratxo orren egitekoa! Beste zerbaitez ari dalarik ere, arira dator.

Izen nagusia eta atzizkia ez dira —nere uste apalez— ez dira bi itz. Itz osoa batetik eta atzizkia bestetik: bera bakarrik osoa ez dana, itz osoa ez dana. Orregatik itsasten zaio itz jatorrari.

Ez dut ulertzen zertara datorren norbaitzuen zalantza: Toki-izen nagusi bat, adibidez PARIS, ezberdin esaten dugula edo ebakitzen alde bateko eta besteko euskaldunok? Itza, izen nagusia, berez dan oso-osoan artzea, ain zailla ote da? eta gero berari atzizkia inguratu. VAN DER MEERSCH'ek, PARIS'etik, LEON URIS'entzat... Esatekoan, berriz, izen arruntak bezelatsu aogozatu oi dugu edozein izen nagusi, bera eta atzizki eraskiña eten gabe esanaz.

GAZTAÑAGA'K

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

GAZTE

Lagun Geiago

Adiskideok:

Idazti onekin gazte talde baten lanak eta arazoak adierazi nai doguz. Mungia ta ingurukoak gara eta euskeraren alde lan apur bat egiten dogu KILI-KILI bitartez.

Gure eginkizuna umeengana doa. Aurten bosteun ume izan doguz gure menpean. Gure lana koaderno batzuk zabalduz, azalduz eta betetzen lagunduz egiten dogu.

Eta oitura jarri dan legez, azkenean eskursiño bat izaten dogu. Aurten 117 aur eroan ditugu. Onek izan dira gure ustez ardurarik geien ipiñi ta koadernoak ondoen egin dabezan umeak.

Eskursiño au Mungia'ko lantegi batzuk emondako diruarekin ordaindu da. Gernika, Lekeitio, Saturraran, Deba ta Durango'tik ibilli giñan eta Mungia'ko txistulari lagunak gurekin izanaz eta sortu zan euskal giroak lagundurik, pozik ibilli giñan.

Eskursiño onekin amaitu dogu aurtengo alegiña.

* * *

Orain gure taldearen egoerea azalduz, gogoeta batzuk jartzera noa:

1) *Jende geiago.*—Gure eginkizunerako bearrezkoa dogu lagun geiago, lanean jartzeko gogoarekin dagoen jende, arduradun geiago. Erri bakoitzean arduradun bat bear dogu gauzak zuzen eta bizkor eroateko. Gatika, Laukiniz, Gamiz, Fika eta Fruniz utzik dagoz.

Beste alde batetik ume geiago izango dogu, gure elburua dan legez. Gure eginkizuna zabaltzea nai dogu. Lan onetan garrantzi aundia dabe gurasoak. Bego eurentzat gure deia: kontuan artu dagiela euren eginkizuna, ots, euren euskalduntasuna semeengana igarotzea.

2) *Gertuera.*—Gure eginkizuna betetzeko, euskera arloan eta zenbait euskal kultur adarretan (Historia, Literatura, Abestiak...), gaitu bearrean gagozela sentitzen dogu.

Toki baten bearra daukagu, bai kontrol apur bat eroateko, geure atsedenerako ta bai itzaldi batzuk izateko ere. Toki au Mungia'n izatea gura geunke. Ezin bestean ba daukagu nora jo. Baiña toki au premiñezkoa dogu.

3) *Gure eginkizuna.*—Orain arte umeei koaderno batzuk bete dagiezan laguntzea ta arduratzea izan dogu bakarrik. Oneri gitxi deritxogu. Gure eginkizuna umeenganakoa izan arren, gazteen artean ere erne bear da: itzaldi batzuk, jai batzuk, erakusketa batzuk, abesti zaio batzuk...

Asmakizun oneik gure eginkizunean sartu geinkez. Euskal talde bat izatea ere pentsatu bear dogu, giroa kezkatzeko, gazteek kezkatzeko.

4) *Gure finantziabidea.*—Orain arte geu arduratu gara bakarrik arazo onekin. Dirua lortzen geu saiatu bear izan gara. Gaur egun erakundeetatik jasotzen dan laguntzea urria da.

Orrez gaiñera umeek geiagotzen doaz eta gastoak geiago ta geiago dira. Kuota bat jartzera ere jo bear dogu estutasun barik abiatzeko.

Laburpen bezela, dei bat gazte ta gurasoei: pentsatu dagiela ta batez ere kementsuak izan daitezala.

Eskerrak aurten lagundu dauskuen adiskide guztiei: txistulari, laguntzaile...

Eskerrak baita ere Mungia'ko lantegi zenbaiteri: Artetxe Anaik, S. A., Olalde Mekanika, S. A., Alkargo, S. C. I., Técnicas Hidraulicas, Talleres Ojama, Suministros Frigoríficos, Instalaciones de Panadería (IPSA), Industrias Ibaiondo, Jabonera Bilbaína, Bizkaia Diru-etxeari ta zenbait partikularreri. Eureri eskerrak egin dogu eskursiñoa.

Besterik ez da gelditzen datorren urtean adoretsuago ta kementsuago izan gaitezala eskatzea baizik.

MUNGIA'KO KILI-KILI TALDEAK


AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA


BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 18
21-15-07 urrt.
BILBAO-5

24 ertilari euskaldunak euren elesti-lanak eskeintzen deuskuez



BASTERRETXEA - serigrafía - IRAILA 1972



ederti

ARTEKALE, 14
DURANGO (BIZKAIA)

KONTU KONTARI

GAZTE GAZTE

«Gazteak! Gazteak bear doguz! Zaarrak, fuera! 40 urtetik gorakoak... kanpora!»

Amabost bat urte izango dira, gazte batzuk izkuntz orretan jardun zitzaizkigunetik.

Zer uste ete eben? Eurak beti gazte iraungo ebela?

«Berrogei urtetik gorakoak!... Landara!»

Ori esan ebenak or dakustaz gaur, landan, aize epelaren begira. Berrogetaz urteetatik gorantz bai-dituzte. Gaztetasuna unetxo batekoa izaten dala, konturatu ez! Ainbesteko itsutasuna izan daiteke?

Or daukozuz ba, gu zar giñalako uxatu nai izan giñoezanak, zaarturik, ta gu baiño zaarrago egiñik; urtetxo batzuen buruan agura zar egiñik.

Eskerrak, orrein utsunea, gaur benetan gazte diranak ondo bete dabiela. Ta oneik zaartuten diranean, beste batzuek beteko dabe euren lekua, ta alan izango da orain eta beti in saecula saeculorum. AMEN.

Gazte! argi ibilli, zeu ere zaartuko zara-ta, urte pillatzeari dagokionez. Bitartean, gazte aroak irauten dautsun bitartean, erne ibilli, gure izkuntzari, yagokonez bultzatuz, sendotuz, indartuz ta biotz-biotzez maitatuz. Zaarrik ez uxatu. Orrelan jokatuz, ez zara iñoiz zaartuko euskereari buruz. Gazte iraungo zara beti!

Gai onek, gure asteroko onen funts-sail edo editorial baten irakurri neban lantxu polita gogorazi daust: «Arako illargira joan eta bidean Jainkorik ez ebela ikusi esan ebenak. Zelako Jainkoa ete egoan arein buruan? Izar arteko bizardun aguraren bat zala uste ete eben?»

Jainkoarekin berdinduteko arazorik ez dala dakidan arren, «astronauta» arei jazo yakena jazo ete yaken norbaitzueri Euskereagaz? Begien aurrean euki ta ikusi ez!

Edo ta... bear ba'da, bizar zuridun agura zarra ikusi eben eta... makillatzea erabagi. Baiña gazte, ez uste izan makillatze ori apainduteko izan danik. Maquillaje **ederra egin dautsie gizajoari!**

Argi ibilli gazte! Gazteak bear doguz! Bai! Baiña ez goizetik gabera zaartuko diranak, il arte gazte iraungo dabienak. Orreik, orreik dira gazteak!

Euskal baitan egundo zaartuko ez diranak!

ABELETXE

ATAKO DAU,

Bai oixe.....!

Etxebarriñ. Markiñe - Etxebarriñ, oiñ urte denpora asko, surbetau zan, gure gaurko autu ori.

Basarriko pamili bat. Guresuok, aitxe eta ama, eta semetxo txiki polibat: Prantzisko.

Patxitxu onek, arantzatxu bat sartu dau bere atzamar poli ta txikixen. Negarra, malkue eta zurrustada baten da.

Ezkatza, onetako kontuetan, izeten da tiatro zorrotza.

Aitxe, bere arto garantzen, edo igitaixe zorrozten. Jakiñe, bixer be biarra egin bier...!

Ama, Patxitxu ume txikixaz dabill zozetan. Arantzia dala-ta, gora bera. Patxi, Patxitxu, ez ba negarrik geixa...

Orduen, «antibiotiko» onena, sartaiñgo orixo pil-pille zan...

A lan ba, suten plantau sartaiñori, orixoz ordaindute, ordago gori-gori, pill-pill, bero-berotan...

Ama orrek, Patxitxu'n atzamar poli txikiori artu bere eskuetan da diño: «Patxi, sartu eta ata, politxorrek, sartu eta ata sartañien atzamarra, sartu eta ata...»

Umiorrek, orixo errian aurrien, zotiñ baten, eztul da zurruztada baten, etenak eitxetxu. Garragarraka, eztau nai, an, sartaiñ ketan eta gorixen bere atzamar arantzadune sartzeik. Lena ill...!

Ostera be, ama izen ba, ta diño.

«Patxitxu, maitxiorrek, sartu eta ata... bakar bakarrik: mezedez ume, eginzu sartu eta ata...»

Alan dabiltz luzero ama-semiok.

Eziñ ba geiza entzun erretolika ori, ta diño atzenez aitxek, bere igitai ori alderdi bata eratute.

«Esan zoixu: sartu, Patxi, atzamar ori sartaiñen... Ata, ata ezan barik... egingo dau-ta».

JUAN J. ARRIZABALAGA

«MARKIÑA»

PURRA...! PURRA...!

Ez al dezute, sarritan, gure baserri zaarretan, amonatxoa, purra ta purraka, oillo deika, ikusi...?

Eta gero, egazti pilla, burruka, batak-besteari bultzaka, zeiñek arto-aleak, ogi-apurrak, aurren-aurrenez beren mokoaz artu ta bai aguro irentzi...?

Orra ba, ara gaur ni ere, purra-purra! deika. ia nere idurimenaren ametsak, nere biotzaren bultzadak, dan-danak apurrak diranez, errez irakurri eta gozo artzen dezuten.

Len esana det. Apurrak dira, ia bi urte zear idatziak. Bertan garbi asko agertuko da, gizon baten egunak ez dirala berdiñak. Batzuk atsegiñez josiak, bestetzuk atsekabez betiak; auek illunak, aiek argiak eta ba-dira ere amurruz su egiñak.

PURRA...! PURRA...!
orra nere burutaldi apurrak.

Urte-berri zala ta begira nik zer idatzi nuen:

Zarraren ta berriaren mugak
igaro ditut
ta asi Urte-berrien egunak.
Nik agur dizut.
Izan zaite santu, osasuntsu,
umore betez.
Urte ontan gaitezen zoriontsu
Jainko lagunez.

Ta arratsalde artan, nere poza ta kezka agertu naita, ara zer asmatu nuen.

Urte-Berri!
Zenbat orrelako gelditzen zaizkit...?
Urte-Berri!
Au asi det, Jauna lagun ta, pozik.

Egun aietan Ezkarai erri aldian zeuden gure gazteak pozez eta zorion betez. Ara joan giñan ikustalditxoa egitera. Egun artako otza, Jaunak... Nere lumak gutxi idatzi zuan. Izoztuta ote zegon...?

Ezkarai errian.
Otz aundia.
Anai biotzetan,
on-zoria.

Zer gertatu zan, beste egun baten, nik au idazteko...? Ez naiz gogoratzen.

Egiak garbi esatea
kaltegarri omen da...
Maltzurra ta ago-leguna,
berriz, bide-zuzena...

Beste egun batean, nere gogo-barrua aztertu ta gero, begira zer jalki nuan.

Benetan aula naiz.
Oar-be ara ni
pekatari.
Ta santu izan nai...!
Baiña nola iritxi?
Izanez,
Otoizlari.

Egun artan, ziaro asarretuta negon. Nere gelan nintzan, jo ta ke sari-agiriak (facturak) ezin bukaturik. Gazteak jolas-tokian «pubolian» karraxika ta, jakiña, nik lanik ezin egiñ... Ta ara zer atera zitaidan.

Gaurko egunetan,
askok ta sarritan,
dute buruetan:
«Zu zarra, landalan;
Gaztea, jolaz-jan».

Gazteak barkatu. Egun artako amorrazioa besterik ez da.

Itxasoa ikusi nai nuala ta kostara joan nintzan. Ara egun artako igalia.

Gure kostako
itxas-erriak,
gizon bulartsuz
bete-betiak
Euskera gorde
dezute beti.
Jarraitu ortan
ta indar berriz.

Ba-zan bai, naiko iztillu ta zarata, garai batian, gure Euskal-errian. Izparringiak, bai irratiak, eta nola ez urritikuskiñak, gauza berbera egunero. Ni ezin ixillik egon.

Eta gora: Eta bera.
Eta dala, Eta ez dala.
bada bai, naiko negarra,
gure errira eldu dana.
Gazte batzut txit kementsu,
bestetzuk, ajolik batez.
Orra gure Erri negartsu,
miñ ta atsekabe betez.

Eta etorri zitzaigun San Balas eguna. Ta jakiña, Bilbo zaarren oitura gorde nairik, eldu nintzan «Arenal» auzora. Zertara...?

Anai bateri nik eskeñita,
orra eskuetan gozokiak.
Balas Deun gaurko egunian,
bedeinkatu, ta nik erosiak.
Grazi berezi bat omen dute
leuntzeko gizonen eztarriak.
Uste det, gozatuko dutela
baita, Anai baten neke-aldiak.

Negua luzea izanik ta otz gogorra genduela ara nere biotzkada.

Neguko aize otz-zakarrak
billusten ditu
gure basoko zugaitz danak,
ezur biurtuz.
Lapur biotz-gabe lez, orra,
ostroak ostu
Adar aulak, erruki gabez
zirt ta zart, moztu.

Bein joan giñan mendira; ni, gazte-urtetsua izan da ezin asko ibilli. Mendi baztarrean gelditu nintzan lore-basatieri begira. Ikuspen lilluragarria benetan.

Loretxo txikiak ta ugari;
margoz, geien-geien, zuria.
Ager zan, baita ere, urdiña,
eta bakan-bakan, oria.
Ni, geldi, daneri begira.
Ura zan lilluragarria...!
Ezin deitu beren izenez,
ortan bai-naiz ez ikasia.

Norbaitek deituta, pelota partidua ikustera joana nauzu gaur. Urtian bein, beintzat, oitura detenez, pozik joaten naiz frontoira. Ortik gora ez naiz kirolzale sutsua.

«Deportivo»ko pelota lekuan
nauzu arratsalde ontan.
Pelota euskalduna izan noski,
baiña, erdera utsa bertan.
Jolasa euskaldun.
Jokua erdaldun.

Ba-ditu, bai, gure Euskal-erriak, ikuskari ederrak. Berak ditut maiz, nere olerkien iturriak. Ba-dakit ba-dirala «oiek umekeriak dituk» diotenak. Baiña nik beti erantzuten diet: «Ik edertasuna nexka baten arpegian bakarrik ikusten dek. Ba... nik izadian billatzen dizkiak, Jainko-izpien apaintasuna».

Guadalupe'ko zelaitxo itzaltsuan
naukazu, so ta so, aspertu eziñez.
Or, Bidaso zugea ago zabalik
Kantauri itxasoa irentsi naiez.
Aiek prantzetzak;
gu, españolak;
Danok euskaldun izan da, nork egin du
Aberri bakarra orrela zatitu?
Antziñako zatiketa
bai omen da sekulako.
Batzuen ankerkeria,
dedilla beti-betiko.
Gutxienek ori nai, baiña,
ez da orrela izango.
Esna! odol bateko euskaldunak.
Lozorro txit galgarria astindu.
Bidasoa ibai maitagarriak,
ez gaitza laban zorrotz-lez zatitu.
Gorde zagun gure izate bakarra,
gaitezen beti, gu danok, euskaldun.

Aurten jaiak zirala-ta, «zubi» asko izan ditugu urtia zear, Baiña zubi oiek, ez dira danentzat izaten.

Lan ariñentzat
zubia.
Lan gogorrentzat
astia.
Bai! gutxientzat
oporra.
ta geienentzat
zigorra.

Orra nere apur batzuk. Orrelako zenbat ditudan? Gutxi gora-bera, Lareun ta geio. Beraz, aukera det zuei jaten emateko. Agogozatu al dituzu ta geio nai? Eskatu ta nik esku zabalez emango dizkitzut.

OLABEAGA'TAR IÑAKI





ESTROPADAK DONOSTI'N

Orra ba, urteroko estropada nagusiei asiera eman diote. Lenengo igandean zortzi traiñeruk jokatu zuten. Esan bearrik ez dago, bazter guziak notiñez bete-beteak zeudela. Izan ere alako aizkurea ematen dure emengo estropadak.

Ikusgarriena bi treiñerurena izan zan. Lasarte ta Getari. Auek egin zuten lana ikusgarria bai-zan. Bide guzian alkarrekin estu. Ez gendun uste getariarrak orren pizkorrak zaudenik. Urteak dira getariarrak azaldu ez dirala Kontxa'n. Erritarrak esaten zidaten, iru arraunlarien okerra zeukatela, gaiñontzekoak gogor eta trinku.

Bi puntetatik itxasora, lau treiñeruak alkar-estu zijoazten. Getariarrak besteak baiñon zerbait aurrerago, ta kanpoko balizetara eldu ziranean, bira oriotarrak eman zioten lenen, lasartetarrak eta getariarrak alkar-ur izanik. Barrurantzean, oriotarrak aurrea artu zuten. Bi puntetara eldu ziranean, nere begiak ezin siñisturik begira zeuden, getariarrak bigarren zetozten, treiñeru erdi atzerago Lasarte, eta donostiarrak oso atzetik. Olantxe bukatu zan lenengo saio au:

1: Orio, 21-33-08.—2: Getari, 21-51-02.—3: Lasarte, 21-57-00 ta 4: Donosti, 22-31-02.

Egun berean, bigarren saioan, Sanjuandarrak lenen, onela geldituaz:

1: San Juan, 21-51-09.—2: Santander, 22-03-06.—3: Beraun, 22-05-08.—4: Kaiku, 22-22-02.

Ikusten degunez, estropadarik ederrena iru treiñeru aben artean izan zan: Getari, San Juan eta Lasarte. Pentsa, getariarrak sanjuandarreri zazpi amarreko edo dezimaren aldea, ta lasartetarreri ia sei segundo, besterik ez.

Saio bien bitarteko estropada jokaldia, Getari'ko Elakano-egunean jokatu zuten Getari'n. Asi Getari'n eta Zarautz'era arte, ta barriro Getari'ra. Saria eun milla laurleko ta Elkano bandera. Iru treiñeruk jokatu zuten, besteak ez ziran agertu. Jakiña, guziok genekien gertaera izan zan, au da, Orio aurrena, baiñan, ez dakit zer esan... arritu ginduna, bigarren Beraun eldu zala ta getaraiarrak azken. Beti esan oi det, joku kontuetan ez dala geiegi piatu bear. Apustuak edo... beintzat bigarren etorriko ziralakoan getariarrak... batek baiñon geiagok ustuko zituzten poltzikoak.

* * *

Orra eldu gera bigarren igandera, baiñan estropadarik ez! Zer dala-ta? Zer izango zan, egualdi kaskarra zegolaren aitzekiakin egun bat atzeratu. Nere iritziz ez zan egualdia ain txarra. Arritzekoa nola ez asmatu ze nolako egualdia egingo zun eguerdian, ortarako jakinduri aundiko gizonak dirala uste det. Pentsa, treiñeru guziak irten zuten Kontxa'ra, baita bi puntetatik kanpora ere, ederki ikusi nitun beintzat, ta zer esanik ez, bertan bildu ziran millakak ere. Oriotarrak eta getariarrak kanpoko balizetaraiño joan ziran. Orrek esan nai du estropadak jokatu zitezkela (itxasorako gai diran killadun ontziekin) eta ez galerazi egualdi txarraren aitzekiakin. Ain zuzen, aizea zearo baretu zan eta egualdi ederra ura galdu zan.

Egualdi txarragoekin bein baiño geiagotan jokatu izan da emen. Zer dala-ta beti egualdi onakin jokatu bear ote da? Latzagoakin ikusten dira arraunlari onak eta ez eznea bezela bare-bare dagonean bakarrik. Nere ustez, ariñegi artu zuten ez jokatzeko erabakia. Bien bitartean, notintza ederra bildu zan kai aldean; apostu zaleak gogor zeuden: San Juan'ek baietz zei segundo Getari'ri. Lasarte'k baietz bost, eta abar. Beraz, pil-pil dago azkena zer izango ote dan. Utzi dezadan idazteari biar arte.

* * *

Gaur, Iraillak 13, zortzi treiñeruak, azkenik, jokatu dute estropada. Egualdi ederragorik gutxitan ikusi oi degu emen. Itxasoa eznea zirudin. Asteartea danez, notin gutxiago ikusi det, naizta, ala ere, naiko. Lenengo saioan lau treiñeruk jokatu dute, ez zan baiñan banderarako. Orregaitik, esan geinke, ez genduala kezkaldi aundirik izan joan-etorria ikusteko. Santander'ko treiñeruak egundoko etorrera ederra egin du, markarik onena egiñik: 21-19-4/10.

Bigarren saioan, banderarako, Orio, Getari, Lasarte ta San Juan'ek jokatu dute. Aze nolako estropada ederra, jaunak! Irteerako txanpa ikusgarria oriotarrena ta getariarrena. Berealan aurrea arturik, bi puntetara aurrean eldu dira, oso alde gutxikin, Orio aurretik. Lau treiñeruak oso estu zijoazten kanporuntz. Balizetara Orio lenen, bereala Getari eta beste biak ere oso ur. Barrurantzean, ikusgarria zan, laurak arraunean gogor. Orio beti aurretik, baiña getariarrak ortzak erakusten. Bi puntetara eldu ziranean, treiñeru bat besterik ez Orio aurretik, ta urrean lasarte ta sanjuandarrak. Aiek esturasunak! Esan dezagun, getariarrak eman diotela arpegi, onenari.

Apustuak, ostera... Orio'k baietz amairu bigarrenari... ta LAU bakarrik kendu dizkio Getari'ri. Lasarte'k sei baietz Getari'ri, ta San Juan'ek baietz lau... ta orra ze azken izan duten. Itz batean: GETARI izen da jaun eta jabe! Ona etorrera:

1: Orio, 21-20-2/10.—2: Getari, 21-24-00.—3: Lasarte, 21-35-1/10.—4: Pasai San Juan, 21-35-4/10.

Ikusten degunez, estropada estua laurentzat. Ala ere, aurtengo estropada guziak ikusirik, ezin izan degu antzik eman. Esan nai det, ez dakigula zeintzuk diran onenak, bateko edo besteko jokaldietan desberditasun aundiak ikusi ditugulako...

* * *

Urrengo larunbatean, zortzi treiñeruk Españi'ko txapelketea jokatu zuten. Lenengo saioan, Santander irugarren gelditu zan, ta orrekin galdu zun banderarako jokoa, bostgarrena bai zan danera. Baiña begira saio bien etorrera. Arrituta gelditu ziran guztiak.

Lenengo saioan: Orio, 21-02-10; Astillero, 21-09-10; Kaiku, 21-45; San Juan, 22-20-10.

Bigarrenean: Getari, 21-03; Lasarte, 21-07-8; Santander, 21-20-6; Las Jubias, 23-19-8.

Beraz iganderako lau treiñurak: Orio, Getaria, Astillero ta Lasarte geratu ziran, txapelketa jokatzeko.

Eldu zan igandea. Lenengo saiokoak ez zuten zer ikusi aundirik, alegia, sari nagusi ta banderakin. Lenen Santander eldu zan. Berealan bildu ziran beste laurak. Ayek burukomiñak! Apustuak ostera... oriotarren alde zeuden, baita getariarren alde ere, lasartetarren aurka. Baiña... ikusi ta siñistu! Astillero izan zan jaun eta jabe.

Asierako txanpa ederra eman zutela, lasartetarrak berealan aurrea artu zuten, bigarren Astillero; pixka bat atzerago, oriotarrak eta getariarrak berdintu. Ala ere ez gendun uste izan atzekuak ez ziotela alde txiki ori irabiziko. Bi puntetara eldu ziranean, aurretik Lasarte ta Astillero berdin, beste biak atzetik. Olan joan ziran kanporuntz. Balizetara eldu ziranean, Astillero aurrena, Lasarte bigarren eta beste biok alkarren ondoan. Barrurakoan ikaragarrizko estropada egin zuten denak, arrituta ordea begira ziran guziak, Astillero ta Lasarte aurretik zetoztela ikusirik. Nun ziran oriotarra? Ez gendun uste ba, getariarrak aurre emango ziotenik; ez dute gutxi egin aurten aspaldikoz lenengo aldiz irten diranean. Oso nabarmen zetorren aurretik Astillero. Zer esan nai du orrek? Ona emen etorrera:

1.—Astillero, 20-39; 2.—Lasarte, 20-47; 3.—Orio, 21-02; 4.—Getari, 21-03.

Orrek esan nai du, orriotarrak eta getariarrak, berdin jokatu zutela, marka berdiña egiñik bi egunetan eta Donosti'ko saioan bezela. Lasartearrak ostera bigarren, zeiñek usteko zun ori egingo zutenik? Aurreko jokaldietan beti getariarren atzetik ebillita; igandean aurretik, alajaiña!

Orain azken orduan, Bilbo'ko estropadan berri. Astillero izan da an ere jaun eta jabe. Lujanbio pamatuak bai daki zer egin. Ara baiñan, Getari bigarren, Orio'ren aurretik, au irugaren gelditu dala.

Egia esan, aurten, estropaderi saltsa eman diona Getari izan da, ta gazteok, ikasi dute zerbait, eta datorren urtean kontuz oyekin! AUPA GETARIA!

E. OZKIN

MENDIRIK MENDI

Oporrak; edozeiñek dakian lez, atsedenez aldi bat igaroteko edo ara-ona nasaia egiteko izaten dira, baiña sarritan, asko, lanean baiño geyago nekatuten dira edo gara. Batzuk, opor orreitarako, etxe inguruan bearrezkoa daben zerbait egiteko gertatuta eukiñik, eta beste ainbatek, mendizale gazteak, aldi astitsu orrei eskerrak urriñeko mendi goitietara joateko gozatasunez, iñon diran arrisku ta nekeak izaten dabezela, benetan nekatzen jakuz. Baiña, zalea danarentzat oporrak igaroteko erarik atsegiñena izaten da.

Aurten, udaldeko oporretan, ainbat mendizale zuzendu da goi-goitiko mendietara; Europa musturretara, Auñamendi ta Frantzi, Zuize ta Itali'n bitartean diran Alpes'etako aitzetara be; Europa'ko mendirik goitienetara. Ango Mendi-zuri (Mont Blanc) eta beste gaillur zorrotz batzuetara igoteko asmoz. Auñamendi'tik ibilli ziranak ez eben igokera askorik egin, galdakaotarrak beintzat, eguraldiak ez eutsen lagundu; ta Mendi-zuri'ra joan zan bizkaitar taldeak, ogeitabosten bat, euron artean galdakaotar Telleria'tar Joseba M., Ruiz'tar Joseba ta Irastortza'tar Xabier gazte euskotar kementsuak, eta, beraz, AGUR' en irakurleak, benetan izan eben zoritxarra. Mendi-zuri ospetsu ori igon eta berantza etozala, bilbotar neska-mutil jator bi edur zulo batera jausi ta alegin guztiak egin arren, bertan bera itxita etxera, guztiz atsekabetuta, itzuli bear izan eben. Tamala benetan. Goyan Begoz mendigoizale zintzuok!

* * *

Gure irakurle askok dakian legez, aspaldiko urte guztietan, Irraillaren irugarren igandean, Betsaide'ko mendi gaillurrean, Araba-Bizkai-Gipuzko mugatuten diran tokian, Euskalerri'ko mendigoizaleen bilketea ospatuten da, mendietan il diran mendizaleen oroigarritzat dogun oroigailluaren ondoan. Aurten be, an izan giñan —aurreko urtean aiña ez baiña— eundaka edo millaka mendigoizale: geyenak gazteak, eder eta alayak, baita urteetan goratuta gagozan ainbat be.

Aurretik iragarrita egoan lez, amaika ta erdietan euskerazko jaupa bikaiña ospatu zan, txonitz labur baiña maminstu ta guzti. Eta meza amaitu zanean, Euskalerri'ko Mendizale Batzako Lendakari Iriondo agurgarriak euskeraz eta erderaz itz gitxitan azaldu euskun batzar orren zera, ederki Iriondo adizkidea! Eta urren Lendakari jator orrek berak besarkatu ondoren, bilbotar Billa mendizale kementsuari domiña bat eskegi eutson, Mendizale Batzak eskiñitakoa kirol garbi onengaitik orrek egin dituan egintza goralgarriak eskertzen.

Ainbat adizkide zaar besarkatu ta agurtu ondoren, alde egin genduan, gaztedi kementsu ta alaya txistu soiñuaren jolas garbian lagata. Gure birikak aize garbiz asetuta etxera itzuliteko.

* * *

Ibilketa neurtu bat, nere ustez luzeegia, Galdakano'ko Ganguren taldekoak eratu dabe Urrilarren 29'garrenerako, ta Ibaizal alderdiko Baskonia, Edesa, Osea ta Padura baz-kunen babespean. Egin bearko daben ibilketa ori, bederatzi ordutik gorakoa bear ba'da, baiña polit-polita ta benetan atsegingarria; aitzarte, bedardi ta danetariko mendi-bide ta gaillur alayak igaro bearko dabez. Ona emen nundik eta nora joan bearko daben: urten Galdakano'n goizeko zazpiretan, Ganguren'en batzartokitik, eta Usansolo, Apario, Urkuzu (emen gozaria), Urtemondo ta Kaiñometa (Aramotz) zear, Belatxikieta, Zornotza (baz-karia), Arburu, Bizkargi, Larrabetzu. Legiña, Uraburu eta Elexalde'tik urtendako tokira.

Ibillaldi ederra, oiñak ariñak eta soiñak ondo trebetuak daukezan neska-mutillentzat!


ALTUNA'TAR JOSU

ONA
ta
RAM
EZNEAK
ZUK
ONARTZEKOAK
DITUZU

URRIÑETIK LAGUNARI

Lagunak lagunari, adizkideen artean, aintziñatik ikusten ez diranean, gaztaroan edo ikasketan naiz gizon egitean, lan eta lan alkarrekin egin dabenen artean, zerbait alkarri esan bear. Ni emen zu an urruti be urruti, ta zer esan? Egikizun arruntak, eguneroko gauza txikiak, orreitxek dira lagunari esaten yakozanak.

Ta, Arrarte'tar G. josulagunak, bere adizkide min Etxeberria'tar P. beste josulagunagandik, olakoxe eskutitz bat jaso dau. Ta, adizkedearen esanak



pozez bete dabela, euskera txukunean be izan dira-ta, eskutitz ori agertzeko eskatzen dausku, ta irakurri dogunean, geuk be ulertu al izan dogu gauza txikien aunditasuna. Formosa ez dago, ez, or alboan, eta antxe, ango bertako benetako ta betiko erriakin bizi dala Jaunaren poztasunean, bere Erri onekin ames; ta ames bigun orreik azaltzeko ango bere artaldeko txiki-aunditasunak esaten dautsaz bere lagun zarrari, ta guk, asteroko onen bitartez, zueri; one emen eskutitza ta berakin etorritako argazkiak.

IBUR

* * *

«Iraillaren zortzigarrenean, Andra Mari egunez, irurogeitamabigarrenean (berak baiña, 62'gnean jartzen dau, ta guk ez jakin zergaitik leiteken).

Neure biotzeko Arrate iesulagun:

Zuk neuretzat uztaillaren amargarrenean idatzia aspaldi artu neban. Eskarrikasko. Orduan bertan erantzutea ez zan oker izango. Asketsi.

Artu dodazan bi aleak izen auxe dabe: ANTOLIGIA DE INSTRUMENTOS VASCOS: argita-tzaillea COLUMBIA eta CPS 9133. Itsasontziz eldu iataz eta araiñegun artu nebazan. Zeuri eskarrikasko!

Oraindik ez dodaz entzun; apurtxo bat okertuta dagoz eta zamapean euki gura dodaz oker-unea ioan arte. Orduan ikusi eta entzun bearko. Onantz bialtzea sillutan 75 laurleko izan dira, noski. Eta sortatxoa egiteko ez eben asko bearko.

Zeuk idatzi eustazunez Vellido'koek biali eben eta Bagilla'ko 27'garrenean Bilbo'tik irten: bidari-xakiak alan diño.

Bigarren argazkia, beste illetak izan genituan batean atera neban. Sendi orrek orain lau aur ditu bizirik eta beste bat il egin iaken. Irugarrenean, bi besoak zintzilik dagonaren senarra eortzi zuten. Antz-ematen iako negarrez dagona.

Iru argazki orreik tayeldarrenak dira.

Eta, gorago esandako nausi iesulagun ori oso beldurtia dalako eta tayeldarrengana gutxitan ioaten naizelako, elizkizunetan euren izkuntza gutxitan erabiltzen dabe. Neure ustez tamal aundia!

Txatalka-txatalka mezako puxkak euren izkeran ipintzen goiaz eta abestu dezaten errextasunak emoten. Iru idazkera ikusi ditzakezu: lenbizi tayel-izkera latin-izkiz: onela «Yava Kayel tegalu ku...» eta abar. Bigarren lerroan ori bera japan-idazkeraz eta irugarren lerroan barriro berorixe txina-marrazkiz. Ez iapan-idazkerak eta ez txina-idazkerak osoan adirazten tayeldarren oguzkera: baiñan, latin-izkiak irakurtzen ez dakitenentzat beste idazkerak zerbaiten lagungarri izan ditezen ipintzen ditugu. Iapan-idazkera adiñekoak ba-dakite irakurten, eta gazteak txina-idazkera ikusiz beren tayel-oguzkera gogoratzen dute.



Lan aundia dala esango daustazu. Onenbestez igarri al izango dozu, euskaldunok baiño atzeratuagoak ludian ba-dirala.

Besterik ez.


Barriro be zeuri eskarrik asko biotz-biotzez!

Sendikoei gorantziak!

Ongi izan.

Zeure-zeurea IESU baitan.

ETXEBERRIA'TAR P. IESULAGUN



Beste batean ezer gurako ba'neu idatziko dautsut. Beiñolako adiskideak banan-banan ba-doaz eta ia nori idatzi be ez iakiñean izango naz laister.

Zeu osasunez zelan zabiz? Gura neuke ba, bixkor izan zaitezen. Bilbo kaleko ats satsak galdu ez zaiezan. Ez al zera iñora urteten?

Neu maiz ibiltzen naz: ez len aiña. Orain egokitu iatan nagusi iesulagunak bildur'edo dau neuk beingo batean osasuna galduko ote'dodan eta orduan iñor gabe geldituko litzake, orain Formosa ontan apaizak urritzen eta bakantzen asi gara-ta.

Batez be norbait iltzen danean neure nagusi onek illetakizunak egitera bialtzen nau: lenengo argazkia ere olako batean atera neban. Gaztetxoak ikurriñak eroaten dabez, il-kutxa aurretik.

PARAGUAY, GAUR

(II)

Stroessner jeneralaren indarkeria ez da aski arazoak zuzentzeko, ez. Ekonomia aldetik ezezik moral aldetik ere pipiak jota dago Paraguay. Emendik barna sartzen dira drogak geienik eta ugarian Ipar-Amerika'ra, eta auek asarretzen zaizkie. Igazko orrillean, F. B. I.'ko ajente batzuek bidaldu zituzten arazoa aztertzera, eta ara nundik garbi jartzen duten Polizi guztiaren burua dan Pastor jauna dala kontrabando onetan dabillena. Ipar-amerikarrak zigor batzuek ezartzen dizkie paraguaitarrei, azukrea eta beste zenbaitzuek erostez uzten diete.

Baiñan Pastor'ek Stroessner'i loxintxa egiteagatik onen aurkako konplot bat gezurrez salatzen du. Atzipetzen ditu militar eta kaleko jende aundikiak, eta militar nagusi geienak beartu ditu atzipetuei emango dizkien torturak ikusitera. Oraindik or dabil, ori ta guzi, Ipar-Amerika, Pastor dalako ori bota dezaten, laguntza guztiak ukatuko zaizkiela bestela, esanaz.

Erria eta batez ere langilledia Stroessner'en aurka burrukatu eziñik dabil. Alderdi politikoak loturik dauzka, Langille Alkarteak zer esanik ez. Eta Langille Alkarteetan, sindikatoetan ain zuzen, egon bizitz obeagoren oiñarriak: Dirua eta lanaren balioa berdiñean ipiñi lezazkean indar bakarra, Baiñan au ongi dakite Stroessner eta Pastor'ek. Sindikatoak galerazpen aundi bat dira beren asmoetarako.

1896'gn urtean sortu zan Paraguay'en lenengo sindikatoa. Eta 1936'gnean lenengo oporketa. 1958'gnean, berriz, % 29, lan-sariak igotzeko eskatzen du CPT'ek (Confederación Paraguaya de Trabajo). Stroeessner'ek gogor ekin, eta gaur oraindik espetxean daude oporketaren zuzendari izan ziran Antonio Maidana eta Alfredo Alkorta. Gobernua CPT'tzaz jabetzen da bere gogozko agintariak beartuaz. CPT, joko onetaz gobernuaren tresna bat biurtzen da, eta geroztik ezin izan oporrik, CPT'ek 22.000 bazkide ditu 120 sindikatoetan.

1971'gnean. ORIT'en bitartez, CTP sindikatoa CIOSL'en sartzen da CIOSL'ek latino-amerikan duan erakundea ORIT da Mexico'n idazkaritza duana. CIOSL, sozialista izanik, Stroessner'ek manejatzen duan sindikatoa onartzen dualako guztiz maxiatua izaten da ludiko langillediaren artean.

Ba-dago, ordea, geiago. Jakiñik ere sindikato azkeentzat eta azkatasunarentzat tokirik ez dagoala Paraguay'en, Washington'en idazkaritza duan AFL-CIO, Sindikalismo Azkeak zabaltzeko egindako Erakunde onek, iparamerikar egin dan Jesús Artigas jauna bidaldu zun, CPT'kin lan egin zezan sindikalismoen alde. Itxuragabeko jokabide bi!

Bitartean C. C. T.'k (Confederación Cristiana de Trabajadores), 1962'gn urtean sortua, itzalpean diardu lanean. Nekazari eta langilleen artean sartua dago, baiñan gobernuak ez du ezagutu nai erakunde legezko bat bezela. Bere zuzendariak atzipetuak, makilduak eta espetxeratuak izan dira. Batzarrik egiteko baimenik ere ez dute. Ala ere lanean, langillediarentzat egoitz obeagoren bat ekarri nairik. Baiñan indarkeria lege dan errietan eginkizun makatza dute langille erakundeak.

Azkenik aitatutako CCT au CLAT'en (Central Latinoamericana de Trabajadores) sarturik dago, eta onekin, baita ere CMT'en (Confederación Mundial de Trabajo).

Lan oni bukaera emateraKoan esan dezadan, munduak beti ezagutu izan duala mixeria, baiñan baita ere egoitz obeagoren aldeko burrukalariak ere... Paraguay, zuzentzeko orren eske dago. Eta guk, langille euskaldunok, besterik ezean, xalotasunezko zorion opak bidaltzen dizkiegu: Azke izan dedilla Paraguay eta beste orrenbeste bere seme guziak.

OLAZABAL'DAR XABIER

Idaztiak

Ez goaz gaur idazti gorengorik aipatzera, bai baiña olangoak izango ba'dira ta, irakurlerik izango ba'dabe, bearrezkoa dan beste au. Ori ta Euskalerri'ko seme-alabak euskaldun izango ba'dira, txikiak izan arren zeatz-zeatz ikasi bear diranak, baita euskeraz itz egiten dogulakoan garanok be.

Ez dau iñork geldituko, ez beintzat Goikoak indarrik emoten dautsan artean, gure Etxebarria'tar Juan Anjel, euskaltzale benetakoa. Euskerea maite dau, ta euskerea ikasten eta erakusten or darabilgu ekiñal baten. Bere ikasleak, asko dirala, ez dira naikoa bere zabaldu-bear indartsu orrentzat, eta irugarrenez, lengoak aitu ziran-eta, bere «Apuntes para Clase de Vascuence» argitaratu barria dau, irakasleentzat lagun izan dadin.

Ba-dakizu, ezertatik ezer jakitera eltzen ba'gara, ekiñean ikasi dogulako izaten da. Eta, bein arazoa garaiturik, nork daki obeto, bere gain zailtasunak izan dituanak baiño, nun izaten diran aldatz-gorak, eta zelan bigundu daikeguzan? Ba, Juan Anjel'ek berak ikasi bear izan eban euskera maitea uts-utsetik asita, ta neke ta oztopoak nun diran ondo be ondo daki. Orra ba, bere lantxo onen garratzia ortxe daukazu, bidea erreztu ta aurrera egiteko makaltasunik izan ez dagizun osotutako lana dau egin dauskuna.

Ta, euskaldun-barri zar onek, beste edozein euskaldun zarrek aiña euskera egiten dakian onek, ez dau au bakarri bere lana, or atzenengo orrietan ikusiko dozu bere idaztiñoen zerrenda luzea. Or, nundik, jakin daikezun ez dala edozelakoa irakasle au, ta bere aolkuak jarraigarri benetan.

UBITZA

Martin Aldazabal TENDERIA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI

GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ERRIETAKO BERRIAK

Arrasate

IKASTOLA

Au idazten nabillen egun berean, asiak izango dira 1972-1973 garreneko ikastaroak. Pozik dira umetxoak euren ikasketak aurrera eruateko. Ikastolatzaz geran ezkero esan bear dut emengo ikastolatan ez dala izan andereiñoen jaurtiketarik. Egia da, eztabaida txiki batzuk izan dirala Batzorde eta irakasleen artean, baiña dana baretu da Batzar Orokorraren erabakiak ontzat artu diralako. Beraz danak, orain beintzat, baketsu. Olan obe!

Baita ere gaiai jarraituaz esan bear da Barrutia'tar Arantza, ikastolako andereiñoa ezkondu da-la bertako irakasle dan, errexildar Arruti'tar Xabier'egaz. Zorionak. Baita ere bertako andereiño izan dan, Agirre'tar Arantza, elorriotarra, ezkondu dala beste bizkaitar batégaz. Ori dala-ta andereiño au Bizkai aldera aldatu da, eta orregaz nere illobatxo Dorleta samindua gelditu, bera bai-zan irakasle jator-jatorra eta pozik ari zan berakin ikasketak egiten. Zorionak zuri ere.

ARANTZAZU'N

Joan zan illaren 10'ean izan zan urteroko erromesa, Erromes onek giro aldakorra artu du. Leen ibilketa au askok, Oñati'tik Arantzazu'ra oiñez egiten zuten eta meza eta elezkizunaren ondoan zabaltzen ziran an inguruko pago artera eta euren sakeltxoak zabaldurik aurreko egunean etxekoandreak gertaturiko jaki gozoak atera ta jaten ziran. Orain berriz geienak berebilletan egiten dituzte ibilliera ta bazkaltzeko etxera etorten gara. Garaiak bere modak ditu. Alan-da-be aitaturiko erromes ori ederra izan zan.

Gure parroko D. Jose Luis'ek emon zuan meza, beste bi praillek lagunduta eta itzaldia Aita Aluztiza'k egin zuan, berak dakin argi eta garbi gaurkotasunez beterik. Eleiza betebeterik egon zan eta naiz eta egualdiak lagundu ez danok pozik etxeratu giñan. Ikusten da oraindik Arantzazu'ko Ama'ri maitasun aundia diogula arrasatetarrak. Jarrai aurrera.

ERIOTZAK

Jaunak beraganatu du, Mendizabal'dar Joseba Iñaki, emengo H. S. de San Juan Bautista'ko lendakaria. Gaixoak geixo luze bat izan du eta kistar on batek bezela eroapen aundiz eroan du. Goian Bego. Atsekabean laguntzen dautsat bere emaste Azkarraga'tar Begoña'ri, guda aurretik bere anaietako bat euzko-aroan oso sartua izan zana.

Baita ere il da Garai'tar Nikola, «Zeleta» baserriko etxe-jauna. G. B. Euzkotar sendi ugari urten dira baserri ortatik eta beroei neure samin-agurra.

Beste eriotz bat ere izan dugu, eta au ezbearrez. Bertan bizia galdu duana izan da gure erritar Arenaza'tar Eusebi erri guztian ondo ezaguna eta lagun askoren jabe. Goian Bego, Eusebi laguna.

MUNICH

Egun ederrak ikusiak gara uri ortako kirol-saiaketak dirala-ta. Bai, izan dira une itunak ere, batez ere isrraeldar eta palestinatarren eriotzak dirala-ta, baiña ortik kanpo zer-ikusi aundiak eta sakonak ere-bai. Ango anaitasun eta besarkadak ikustekoak ziran. Tamala, bestalde ez ikusi bearrik euren artean euzkotarrik, batez ere gure pelotariak.

UDALAITZ

Arratia

An-or-emengo barrien eta norbaiten billa Iurre'n izan naz, nire sorterrian. Garbe aldean atzerriko pautza ugari, Elexalde'tik Plaza Zaarrera errikoa be ez gitxi, illargi nagia ez da agiri ta bideetako argiak epertargi.

Gorago aitatu izan dodan norbait a bear neban-eta, Olabarri'rako bidean ukuillu edo korta-lanetan iñarduan gizonarengana jo neban eta nire gau-on eta agurrari, era onetan erantzun: «Aquí estoy gobernando dos vacas como dos templos, un novillo como una iglesia y dos cerdos como dos catedrales». Ondo ta eder dok eleizaz eta antzekoz ikuillua, kortea beterik eukitea, ta ez litzakik txarto ta gaizki izango, eure burua bere, catedral naiz templo izatera biurtutea.

Orain artekoa illaren bederatzian izan zan, eta 10'ean Zornotza'n izan nintzan. Amasei gizonezkoren euskerea entzun neban, Patxi Pitxon zeanuritarra arteko zala, amalau berebil AGUR-zale ikusi, iru Anaitasuna'renak, eta ganetiko guztia eutz eta pautz, izatea ta nortasuna galduz eta ondatuz daroan erria.

Zornotza'tik Euba'ra. J. L. Izagirre'ri lepobero egiteko asmoz, baiña biriak aizebarritutera nonbaitera joana zalarik, Etxebarri'ko mai oparo ugarian aurkitu neban tokirik egokiena.

Baserri auxe bai egiz eta benetan aurrerapenaren txirrinean aurrena: 35 milla pesetako epertxakurra ateetan azke eta 30 millako beia askan lotuta.

Europa'n doguzan bolaririk onenetarikoak be aitatu izan genduzan, San Antonio'ko ta Boroa'ko panparroiak, baita ingurumarietako bolarien ezitzaillea be, Mugartza TXATUA. Artu eta estutu egik, ba, adizkide zar, AGUR onen bidez luzetuten doatan bosteko gartsua, ta bialdu onantz ondo biribilduriko guzurbolak, gogatsu irakurriko yoguzak-eta.

Orain Arantzazu'n nozue Busturi'ko ondartzetatik etor-barri diran iru llobakin.

—Osaba, an bai an. Izen bat bera bez erdeldunik: Itziar, Gorka, Iratxe, Itxaso, Olatz, a. t. a., guztiok izan gara izenezko euskaldunak.

—Ba, olan izan ba'da... itxastxoriak eurak be euskaldunak izango dira oarin ezkero!

—An izan garenon ezpanetatik itz erditxo bat bera bere ez da izan euskerarentzat.

Izenagaz arro... izateari marro. Ur kresaltsuak garbituko al dauz Madalen Bustiri'koren itxasertz atsituak.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

PERRETXIKO-LEYAKETEA

Aurre albiste batzuetan esaten genduan, erriko jai nagusiak aiñako edo aomen geyagoko jai batzuk, osperik aundianagaz izan dirala azkenengo urteetan, eskerrak orrein antolatzailleai, txukun gertatuak izan diralako beti. Orretariko bat, Perretxiko Azalkuntza-Leyaketea izan da azkenengo bost urteetan, eta aurten VI au ez da itxusiagoa izango, «Peña Santa Cruz»koak, antolatzailleak darabillen trebetasuna ikusirik.

«Peña Santa Cruz» jolas-jakintzazko bazkunak, Udala ta Bizkai'ko Aurrezki Kutxa'ren babespean antolatuko dau aurten, eta bide batez, Bizkai'ko zizalari txapelduna aututzen da, naita ez dala erreza izaten, asko izaten dira ba, ziza mordo ederrak ekartzen dabezanak. Aurtengo azalkuntza au baiña, zerbait geyago izatea nai dabe eratzailleak: ziza-zale guztientzat irakaskintza bat, eta batez bere, jakintza arazoatan edo bideetan dabizenentzat ongarri. Orregaitik, osagille, abere-osagille ta sendagaigille ikasketetan dabizenentzat, deituak izango dira azalkuntza ori ikusi ta arakatu dagien. Erabagi txalogarria benetan «Peña Santa Cruz»ekoak artu dabena.

Ba-dakizu irakurle non ikusi daikezuzan gauza jakingarriak, Urrillaren 15'gnean: Galdakano'ko enparantzean.

URTEURRENA

Gure erri onetan bere landola garrantzitsua daukan alkarteak, «Formica» onek, bere sorkerako zidarrezko ezteguak ospatu ditu giro oso egokian. Alkarte onen sorkerako izena «Iberplástica» izan zan, baiña geroago «Formica Española» ipiñi eutsen eta izen orrekin jarraitzen dau.

Jai ori Iraillaren 15 ganean ospatu zan, eta lantegi orretan ogeita bost urte lanean daroazan Alkorta jauna omendua izan zan. Eberdateko amar lauren gitxiagoetan, Andra Mari eliza zaar ospetsuan jaupea izan eben, eta ostean aurreskua. Gero, inguru artako igeritegian igeri-jolasak. Ondoren Zuazo'ko jolastokira jatsi ziran ta ostikoketa ta pelota jokaldiak jokatu ziran, bitartean «Andra-Mari» talde ospetsuak, langille eta zuzendari guztien poztasunerako, dantzatu eben.

Eberdian, Begoña'ko «Avenida» jatetxe apaiñean bazkari txukuna bertaratu nai izan ebenentzat, esan dogun dantzataldeak alaituaz. Urteurren ori gomutagarriagoa izan edin, langille bakoitzari bost milla laurerleko emon eutsoezan, ederto guzti ori! Ea urrezko eztaiak be orretaraxe ospatutzen dabezan, eta geuk ikusten doguzala. Zorionak!

EZKONTZAK

Iraillaren 16'gnean, erriko Ama Neskuts'aren txadon erromaniku zaar ospetsuan, erriko ta nire auzokide dan Garabieta ta Larrinaga'tar Miren-Josune neskatil liraiña ta Nabarniz'ko Landeta baserriko Zearra ta Urizar'tar Jon-Gurutz mutil txairo azkarra ezkondu ziran. Baita Iraillararen 20'gnean, Enekuri'ko Fatima Ama Neskutsa'ren txadonean, gure auzokide ta euskaltzale jatorra dan, eta beraz, AGUR'en irakurle, Artetxe'tar Begoñe neskatilla liraiña ta Getxo'ko Antuñano ta Garai'tar Gotzon mutil lerden euskeltzalea ezkondu ziran. Gure zorionak lauoi AGUR onen bitartez, eta benetan zoriontsuak izango al-zaree artu dozuen biziera barrian.

BASA-JAUN

Altzatzu

ERRIKO YAIAK. GURUTZE DEUNA

Altzatzu, inguru oneitako errietan, andiena ta biziena da bere zazpi milla lagunekaz.

Igaz astebeteko yaiak egin zituzten; baiñan gazte yator batzu arrenkuratu ziran: «egun geiegi zala «Altzatzu» lezko erri batentzat; ta dirua, be, geiegi garbitu bear zala ainbat eta ainbat egunetarako ta ainbat ikuskizun ezbardiñetarako».

Orra ba, aurten, lau egunera gutxitu dabez erriko yaiok.

Izan be, erriak edo uriak, zazpi milla lagun: ez da gitxi, yai andi ta dirdiratsuak egiteko Baiñan erriko yenderik geiena, Gipuzkoa'ra oi doa, bear egitera ta bizierea ataratzera.

Esate baterako, Legazpia'ra Patrizio Etxeberria'ren edo Zumarraga'ra Orbegozo'ren ta abar landoletara.

Emendik, neure komentu ondotik, goiz oro, burbibidearen orgak langillez bete-beterik atara oi dira. Eta bardin, gau oroz itzuli be etxera, yendez bateak ta yosiak.

Orrek esan gura dau, erriak nortasun txikerra dauela beregan. Ba daukoz euki landola bat edo beste; baiñan danak txikerrak. Orregatik mutillak eta gizonak, Gipuzkoa aldera, yo bear izaten dabe, diruak egiteko.

Ori esanez gero, erriko yaiei buruz diardudala, euskal gauzetan bakarrik geldituko naz. Ona ba asi:

Illaren 13'an, Gurutze Deunaren aurreko egunean, Iruña'ko Abes-batza ta Zezilia Deunaren orkestea etorri ziran onera.

Orreik biok, musika-bazkun ezbardiñak dira berez; baiñan, oraingoan, biak bateratuak etorri ziran, artezkari bat bakarra ekarriz: Bello Portu.

Bello Portu, euskal musikari ospetsua, Zezilia Deunaren orkestako Zuzendaria da; baiñan oraingoan biena egiten eban. Ordu ta geiagozko entzunaldia emon euskun.

Lenengo aldian, Mozart eta Eslava; eta bigarrenean, barriz, Haendel. Ordu bi ta geiago oso ederki egon ziran; ta yendeek, esku-sarta beroz, txalo ta txalo yo eutseen ta zati luzean gero; eta alde orotan, goralmenak besterik ez ziran aditzen.

Ala guztiz be, gauza batek arritu ninduen: ez ebala euki euskerazko zatirik; dana latinez ta erderaz. Euskerazko kantarik, battxo be ez.

Eta Bello Portu euskaldun dana, banekian ta alan be ez eban euskal-musikarik entzutera emon. Orrek arritu ninduana apur bat baiño geiago; ta ez dakit zergatik izan zan olan.

* * *

Illaren 17'an, domekea ta yaien azkena; umeen euskal eguna. Au bai; au oso ondo ta dirdiratsu atara zan.

Umeak, milla inguru etorriak: 22edo taldeetan. Gipuzkoa'tik, 6 talde: Donostia Zaarra, Arrasate Oria'ko Alegi, Ordizi, Ormaiztegi, Zumarraga ta Idiazabal. Oneik guztiok, Goierriko guztiok, ondo baiño ondo yantzirik ta atondurik, danen aurrean Beasain'go Erramon Aranburu etorrela. Erramon Aranburu, txistuaren irakasle dirdiratsua da. Ondo etorri, ta ondo yo be egin eben.

Araba'tik talde 2: Aramaio ta Gazteiz'ko «Gaztetxu». Bizkai'tik, be, beste talde bi: Markiña ta Durango. Euskalerriaren iparraldetik, «miarriztarrak»: talde bat, baiña ugaria; «Bus» andi batean: «Oldarra» taldea.

Naparroa'tik, amar bat talde; Lizarra, Tafalla, Iruña (Oberena ta Andoni Deunaren gaztedia), Aoiz, Altzatzu'ko bertakoa, Urdin, Etxarri-Aranatz, Lizarraga-Ergoiena, Huarte-Arakil, Olatzagutia.

Yaietako beste egunetan, egualdi petrala; baiñan umeen egunean eder-ederra, argiargia ta epel-epela: denpora, be, umeen pozari ta guztion alaitasunari batu egiten yakula.

Eguzkiaren begietan, yendeak ta batez be umeak, alango yantzi politakaz ebiltzala ta leku guztietan egozala, kaleak ta bideak ta bazterrak lorategi zoragarriak zirudien.

Talde guztiok, lerroz-lerro ipiñita, kale barrena, Gurutze Deunaren plazaraiño yoan ziran, txistulariek, bai umeek bai andiek, yo ta yo, lagundurik.

Eta bitartean, yendeak leioetan ta balkoietan ta kale-ertzetan, aoa zabalik, ume dantzariei ta txistulariei begi-begira.

Eta umeen lerroetan kokaturik 7 gurdi, lorez ta belarrez ta euskal usaiñez orniturik. Batek «belar-metatzea» idazkuna edo «ikeskintza» ta abar eroala. Oneik, be, ume dantzariakaz batera, Gurutze Deunaren plazara. Eta onera eldu giñanean, yendeketak plazan ezin artu. Xardin zaarrak oi dagozen suilla, bete-bete ta estu-estu egoten dan lez, eta orregatik ondoko bazterrak, be, danak bete-beterik.

An plazan udaletxeak umeei amaiketako gozoa, okela ta guzti, emon eutsen. Ta bereala, dantzari txiki batek aurreskua egin eban, egun artarako erriko alkate izendatua izan zala-ta.

Aurresku amaituta, eta alkate txikiak erri guztiari Euskeraz ta erderaz agur egin-da, kantatxo bat edo beste abestu-ta, umetxoak bazkaltzera etxeetara.

* * *

Arratsaldean, 6'retatik 8 ta erdiak arte, umetxoen dantzak eta kantak. Dana zoragarri ta dana eder...!

Betarik ez egoela-ta, bospasei taldek ez eben dantza egiterik izan. Gaua etorrela, urrindik etorritakoak, be, ba zirela ta yoan bear ebela, talde bat edo beste dantzatu barik gelditu zan.

Azkenez danok, zutunik, «Agur yaunak» abestu genduan. Eta datorren urtera arte. «Gure Etxea»ko gazte-taldeak, asmakizun andiak ta sutsuak daukoz, aurten baiño, be, obeto egiteko datorren urtean.

Zorionak, Altzatzu'ko gazte-talde maitagarriok; eta Jainkoak lagun dagizuela, zuen asmo ederrak aurrera eroaten.

Eta gaurkoz, beste barik, agur irakurleok, Jainkoaren baitan.

YURRE'TAR YULEN A. K.

Zestua

Uda-aldiko garai egokienean izaten ditugu oporketak ere; urte burua lanean igaro dutenentzat, saritxo edo atseden-aldi bat alegia. Baita Euskalerrian ditugun txoko ta adiskidei ikus-aldi bat egiteko ere.


Atseden-aldi dugula-ta, Lezama'n izan giñan; txori-erri ibar ordekan: autobidearen bi aldetara, goietan, baserriak ikusten dira. Baserri eder inguruan eder belardi ta soro-landuak dituztelarik. Aietako baserri bat Madariaga baserria Etxebarria ta Loroño'tarren bizi-toki.

Baserri onen inguruan, bertako seme Iñaki ta bere emazte Jone, etxe polit baten jabe. Oporraldi egun oietako baten, etxe ontantxe bildu giñan; bai taldetxo itxurazkoa bildu ere! etxekoandre Maria buru ta bere alaba Edurne. Aiek agurtzeko irrikaz joanagatik, beste arazo nagusi bat guregaz eraman genduan.

Zestua'ko eliz-nagusia berritzea dalata; San Anton abes-batzako abeslari bat edo bestegaz mintzatu, eta datorren illean gure errian, elizaren alde abestu zezaten eskaria, Sabin eta Arantza, eskon-barriak eta abeslari iaio auegaz mintzaturik, Zestua'n abesteko, etziguten oztoporik jarri. Orra, gure asmo nagusia bete; Zestua'ko abesti-zaleak, eliza berritzeari lagunduaz, Bilbo'tik utsaren truke datorren abes-batzari, entzuteko egokitasunik izango dute. Abeslari arteko naia ta gogoa aundia izan dala, jakin-arazi nai dizuegu.

Ona jasota urrengorako esku zabaleagoekin jokatzeko ikasgai bikaiña. Geroxeago ta bere garaian, nola, noiz eta nun izango danaren berri, zeatzago emango dugu.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA



ALKAR-IZKETAN

ZER EDO ZER DALA-TA

—Zer dok, Peru, ain arreta andiz irakurten diarduan ori?

—Aldizkari bat irakurten etorri nok bidean, eta arigarria dok baiña, ze izkuntzatan idatzita yagoan igarri eziñik ñabik.

—Izkuntza gayetan ez az makala ba! Ik aitu eziteko gauza bakanen bat izango zoan.

—Bai benetan! Idazlan baten bakarrik, beste antzeko gauza batzuen artean, onexek esaten yoazan: «Transformazioaren faseari»; «Post-primarioaren deskribitzean»; «Itz magiko tirano hoik»; «Kontzientzia post-primarioaren... pentsakera alternatibiste»; «Mentalidade alternatibistak». Lenengotan batzuk «euskeranto» esaten dautsena izango ete doan egon nok baiña ez yoat uste orrenbestera eltzen doanik be. Euk zer deritxok?

—Zer esango daustat ba! Neure aldian ezagutu yodanazan izkuntza barriak, onexek izan dozak: *Volapuk*, *Esperanto*, *Ido*, ta «*Interglosa*», eta onango baten antzik be ez yaukok. Orrexek posten latin antza emoten yautsek, baiña ori be ez dok.

—Bear ba'da *erderanto* izango dok.

—Len yaukoguk naste ta oin beste naste bat? Zoratuteko beste be ba-dok ori?

—Orren bildurrik ez eik euki. Zoroak ain leloak ez dozak, eta euren erantzunetan egi andiak esaten ba-yakiek. Antziñako esakerea dok zoroak eta umeak egiak esaten dituela. Zer edo zegaitik izango dok?

—Nire lagun bateri ederra bota yautsoan zoro batek. Zoroetxe bat ikertzen yoan zoan eta bertan egoan zoro bateri itandu yautson: «Au zoroetxea da?» Zoroak bene-benetan erauntzun yautsan: «Ez, au «nobiziaua» bakarrik da, zoroak kanpoan dagoz».

—Izan be, gauzarik entzuten dok! Lengo baten izparringi guztiak izki andiakaz eta argazki eta guzti, Logroño'n marraskillo lasterketa egon zala, eta irabazi ebanak, metro bat eta ogei zentimetro ordu baten egin ebazala yaukarren. Ta orretarako, Alemania, Prantzia, Suiza ta abarretik marraskilloak ekarri yoezan, eta urrutikuskiñak be, garrantzi andiko gauza bat lez emon eutsola, ainbeste diru eralgita, eta yentetza ikaragarria batu zoala.

—Nik ez yiñoat ume txiki ta andiei, barre eragin eta poz aldi bat emoteko olango yolasak ipintea egoki ez danik, gaurko bizitza nastuan asalkadi bat ondo etorten dok-eta, baiña ainbeste garrantzi emon barik.

—Ba, egun batzuk geroago ni geyago arritu niñoan, ez yakiat zenbat txakur «millonario» dozakala ugazabak ilburukoan itxitako diruakaz.

—Ori, munduan ainbeste ume ta gizon *gozez* ilten dozakan birtatean, zorakeri ta zentzunbakokeria ori ezpadok, ez yakiat zer izan leitekean.

—Len esandakora goazak, zoroak «kanpoan» dozakala. Zoroa gauza bakotzari bere garrantzia emoten ez yakiana izaten dok.

—Orduan, geuk be arduraz ibilli bearko yoguk, olango gauzei yauken garrantzia baiño geyago ez emoteko.

—Orretan zuzen ago, baiña bakik, burubakokeri antza yauken gauzak, *gizonen* artean ondo ez yagoazala esatea be bearreko dok, geyago ugaritu ez daitezan.

—Alantxe dok izan be, gauza bakotzari bere izenegaz deitutea beti yagok ondo, gaurko gizarteko gaitzik txarrenetakoa ori ez egitea dok-eta.

—Ordua igaro yakuk igarri barik eta urrengorarte, agur!

—Agur, ba!

URIGOITIA

Ibilladi Bat Irratiz

Letona Aitak, gure ia asteroko idazle jatorrak, alkar-izketa bat izan dau Bilbo'ko Erri-irratian, eta bertako zatitxo bat emen damotsugu euskeraz:

«Emen dogu, irrati onetan, Letona Aita, pasiotarren lekaidetxean, Deusto'n, bizi dana. Bere erlijio berbaldiak izaten zirala-ta, danok ezagutzen dozue. London'etik etorri barria da. Illebete osoan an egon da, «Catholic International Studens' Hostel»eko jauparіaren ordezkoa egiten.

—Ondo etorria, Letona Aita. Zelan izan zara atzerrian?

—Naiko ondo, ta uste neban baiño be obeto.

—Zer deritxazu London orri?

—Egitan eta tolesgabe, ustegabean artu ta zirrada ederra egin daust. Bear ba'da, bere aunditasunaren gomutak, zirrada ori sortzeko, aurretik gertatuko ninduan, baiña London' beti izango da uri andi ospetsua ta ospagarria.

—Eztiñoe ba, orratiño, laiño ta ke asko izaten dala an, eta erri itzaltsu ori belaiño, lanbro edo eurak deitzen dautsen fog eta smog'egaz inguraturik dagola?

—Ori egia da, egualdi txarretan. Alan eta guztiz be, uste oker barik London'era doana, apur bat aurretik lilluratuta ango kultur, ekonomi-almen eta idatzi ta entzuten danagaitik, erri orren andierak biotz-ikaratu lei.

—Mesedez, berezitu egiguzu zuk esan eta eragoten dozun anditasun ori.

—Ara, asko ta askotariko zugatzak; orrenbeste lorategi luze ta zabal: zugazti parke aundiak; biztanleen apaitasuna, arpegi ona edozeiñi egiteko gertu; besteen enda, jatorri, margo edo erlejiñoen ardura-eza. Guzti au alde batetik. Ta, gero, kaleko burdikamioi, berebillen joan-etorri izugarria; lurpeko tren-bultzietako zarramarra; Tamesis ibaiaren luzera ta zabalerea itxas-ontziz beterik; zearka azpiratu daben amabikada zubi eder, garesti ta aundiak. Au, ta orduak eta egunak bearko neukezan beste gauza askotzaz zeaztasunak emoteko, edozein nabarmendu ta bere gogoa eroateko dirala, ezingo zenduke ukatu.

—Itxi egiztazu esaten, uri andi guztietan orrelango gauza dan-danak ikusten dirala.

—Baiña, London'en agertu ta nabarmentzen dira bereziz. Onez ganera, zuri ta entzuten naben guztiei auxe esan gura dautzuet: London'eko Dorre'ra ikustaldiak nire jaupari gogoan biotz-ikara ta jakingura andia egin eustala. Ikusleen, turisten oberako, Westminster ondoko zubitik Dorre ospetsu orretara, ordulauren bakotxean, motordun ur-ontziak doaz. Beste abade lagun bategaz ontziratu nintzan Tamesis ibai zabaleko uretan, ta Dorre'ra eldu. Sartu giñan barrura, ta ainbeste ta ainbeste gela, barne-bide luzeta ate inguratuz, ikusi. Nola ez gogoratu Tomas Moro deunaren irudi ixilla, betiraungarria? Etxetzar andi antxiñako, ia zazpi mendeko orma, sapai, batzartegi, espetxe, guzti ori, orren nortasun sendoaren egitzari urenagaz erkituta dirudi.

Ba-dira sei urte edo, emen Bilbo'n iñoiz ikusi dodan pelikularik ederrenetarikoa agertzen zan. «Gizon iraunkorra» izen buruz. Ezin obeto, pelikula orretan azaltzen zan Tomas Moro'ren bizitza London'eko Dorre orretan. Nire ustez, pelikula orren ikusketea ta gogartea, oraingo gizasemeentzat gogojardunak eta misiño-itzaldi luzeak baiño obeak dira.

—Ta orain, Letona Aita, esango al dauskuzu zerbait zeu egon ziñan ostal-etxeari buruz?

—Bai orixe, ta atsegin andiz. Izen luze au entzutean: «Catholic International Students' Hostel», ostatu ori gitxienez zazpi edo zortzi etxe-maillazko etxeren bat dala uste legike. Ez dago olakorik. Zarata ta zarramarra bako kale garbi bat zear, erreskadan dagozan etxe-mail biko etxetxuak osotzen dabe Erriarteko Ikasle Katolikuen Ostatua, ate aurrean lorategiak, London'tarrak ain maite izaten daben lez. Bizi-leku txeratsu, abegi-onezko, begientzat atsegingarriak dira. Ektare bakoitzean biztanle gitxi baiño mugatuak izan daiten, arduraz saiatu ta alegintzen dira London'en. Gaurko etxegintzaren gogamena auxe izan bear leuke. Ikasi ta eragin-erazo dagiela Bilbo'ko arduradunak. Osteantzean, emen burdiñezko, saltzarrizko ta adrilluzko ormen artean, aize garbirik eta arnasarik ezin artuta, laster itoko gara danok...»

Ta, orain arte Letona Aitaren itzak, orra ba, ezagutu dagigun lenengo gure erria, ta gero, gero gero, goazen London be ikustera.

AIXOLA

Rolf Hochhuth

Irugarren Reich zala-ta auek judutarrekin egin zituzten erailketak, gizakume, emakume ta aur jarraiki il-erazo, judutarren enda desegitu naiean. «El Vicario»k Pio XII'gnaren erru batzuk azaltzen ditu. 1962'go urtean Erwin Piscator'ek antzerki au, Berlin'en antzeztu zuan, eta ondoren irurogei bider, ogetasei aberrietan. Erroma'n, galerazia izan zan.

Laster emango duan antzerki berria «La comadrona» Zurich, Munich, Essen eta Gottingen'en lendabizika aldiz agertua izango da. Len-aldiz antzezteko, erri auek aukeratu ditu nunbait. Rolf Hochhuth gaur-egun, Basilea'n bizi da. «El Vicario» antzerkiari buruz berak dionez: Piscator izan ez ba'zan, dalako antzerki ori, egundaiño ezan antzeztua izango.

1967'go urtean «Soldados» antzerki berria leenengo aldiz antzeztua izan zan; antzerki ontan Churchill'en usteko erruak agertzen ditu. Batez ere, Sikorski jeneral polacoari egazkiñean gertatu zitzaion izkutuko ez-bearragaitik. Antzerki onek, izugarrizko iskanbilla sortu, ta oso aurrezkatua izan zan.

1970'go urtean bere irugarren antzerkia «Guerrillas» ia «kritika» guzitik listatua azaltzen da. Ipar-ameriketako «senadore» batek, matxiñada aurrera eramaten saitu zan, baiña ertzaiñaren gemenean zegoztenak, ilketa ikaragarri baten bitartez, odolmendi aundiago batetik askatu zuan.

Hochhuth'ek «La comadrona» antzerkia bukatu berria du. Hochhuth'en «La comadrona» antzerki aipatuan, Sophie beartsua agertzen du. Bizi eziñak eta bizitza garratzak beroturik, bere barnean burrukarako sua piztu, eta indar eta kemenez jantzirik, erdi Juana de Arco, eta erdi Florencia Nightingale'ren antzera jokatzen du.

Bere babestuei indarra ta kemena barrendaturik, azkenean beren txabolak sutu, eta gudari-talderako zauden bizitokiak jabetzeko baimena izan zuten. Hochhtuth'entzat, ez da gai berria.

Aldizkariak galdera batzuk zuzentzen dizkio, eta oietako bat edo beste agertuko ditugu:

—«Galdera bat Rolf Hochhuth: bakoitzaren jabetasun eta ondasunen aurka al zaude»?

—«Or zear liberala naizela esaten dute, nik esango nuke, liberala baiño ezker aldekoa geiago naizela. Ez naiz marxista, bakoitzaren ondasunak, gizonaren azkatasunerako bide bakarra ori dala uste detelako. Marxismoaren utsegiterik aundienetakoa arlo ontantxen aurkitzen da: Bakoitzaren ondasunak, agintearekin kidetu ta berdintzen, eta Jainko ukatzea; au, aundiena noski.

—Solasari jarraituaz, dio: «Beste nere antzerkietatik zerbait ikaskizunik atera ba'liteke, «La Comadrona'k» ere, zenbait ikaspide ba-ditu. Sophie aiñako emakume erritar eta ausarta nun aurkitu? Nun bera bizitzeko txabolak erre ta kixkeltzen dituan langillea»?

Egi onen izena, «La Comadrona» da. Lagun-urkoa benetan maitatu. Lagun-urkoa benetako politikarekin maitatu. Beartsuetan beartsuena, maitasunik gabe bizi dana; eta aberatsetan aberatsena maitasunez bizi dana.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

ZER EDO ZER

EINSTEIN'EN APALTASUNA (1879-1955)

Albert Einstein, Pisika gayetan Nobel Saria irabazia ta matematiku ospetsenuetarikoa ta munduaren azalben barri bat asmau ebana, gizon lau eta apala izan zan. Ungaria'ko osagille ospetsu Jan Plesch'en adizkide andia zan, eta Einstein'egaz izan eban azkenengo autu-aldia azaltzean auxe diño, Einstein'ek esan eutsola:

«*Osagille, nire gogoko egoerea benetan bakana da. Era berean apal eta arro aurkitzen naz. Eskutuan egon diran izadiko lege batzuk arakatu ta azaldu dodaz. Baiña gitxi izan dira. Ondiño zenbatu ezin ala mundua zuzentzen daben lege dira ezagutzen ez doguzanak. Gizonak guztiak agertu ta azaldu ezin izango ditu, naizta milloika urteak bizi. Au da eskutapen arrigarria! Nik neure burua apal somatzen dot izadian ainbeste aberastasun erein dituan Adimen, Egillearen aurrean. Alan da guzti be, gizon yakintsuak aintzaz eta gorapenez inguratu nabe, ta yakitun anditzat nauke, egiz, au gauza txikia izanda. Euren aurrean arro somatzen naz, eta alde orretatik, eurok ezezteko tentauta egoten naz. Yakitun andia deitu, legeok susmau baiño besterik egin ez dabenari!*»

Ikasbide ederra Yaungoiko-ukatzailleentzat!

EINSTEIN'EN LAUTASUNA

Bein baten Barzelona'ko Udalak deituta ikertaldi bat egiten etorri zan. Gizon ospetsu lez, Yatetxe edo Hotel Ritz'ean Udalak ostatua gertau eutson. Baiña berak bere kontura ostatu bat aurkitu eban. Udalekoak, yakitunaren egoerea euren ardurapean egoan-eta, alegiñak-alegin egin ebezan Hotel Ritz'era eroateko. Baiña alperrik izan ziran. «Ni erritar gizon lau-bat naz, eta neuri dagokidan ostatua aurkitu dot», erantzun eutsen.

GAMA

AGUR

III URTEA
57 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - URRILLA - 14

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

NASTEA

Ezin ukatu. Gure egun neketsu ta garrantzitsu oneitan naste aundi bat sortu da. Baiña, ona ala txarra da naste au? Galdera oneri erantzukeran, jakiña, ezdabaida ta nastea bertan sortuko jakuz.

Nasterik ez egoan aldietan, gauzak argi ikusten ziran. Eretxi bat baiño ez egoan, eta beste eretxiak eta gizonak oldozkera orreri menperatuak egozan. Batasun orretan ez egoan ezelako nasterik. Baiña orain eretxi ezbardiñak agertu dira eta gizonak banandu dira, nastatu dira. Eta zer obea, lengo argitasuna ala oraingo burrukea? Zer obea, iltegietako bakea ala bizitzako gudea? Nire ustez, gure egunetako nastea benetako bizitzearen eskari bat da naste onen azkenean benetako bake bat sortuko da, bardintasunean eta zuzentasunean oiñarrituriko bakea. Ez larregi poztu, orregaitiño, bide luzea dago ibilteko, eta gure urteetan, bear ba'da, bake ori ez dogu ikusiko. Gizarte egiña artu dogu, bere akatz bildurgarri ta guzti, eta gure ostekoentzat gizarte obe bat izteko eran jokatu bear dogu. Norberekeri bildurgarri bat izango lizake, geroko gizadia ez konturatzea.

Aztertu dagiguzan, pizka bat gaurko nasteak.

Nastea bakotxaren barruan. Au batez be gazteengan.

Len dana ziurra ta argia zan; gaur dana billatu bearra daukagu, betiko oiñarri ziur batzuk izan ezik.

Benetan tamalgarria gaurko gaztediak barruan daroan nastea! Eta au gai askori buruz: sendiko arazoetan, erlejiño-gaietan, erri-arazoetan, jolasai begira, jakintza-arazoetan, benetako maitetasunean... Ortik sortzen da, gaur iñoz baiño geiago, gazteak dauken aztertu bearra, lan egin bearra, ikasi bearra... Eta zori txarrekoak arazo guzti oneik bertan bera itzi, eta, burubako lez, jolas utsean bizi diran gazteak! Zarrak egindako gizadi bat onartu bearko dabe eta gizadi au ez da iñoz eurentzat egoki izango, iñok buruan ezarten dauskun txapela beti txarto egoten dan lez.

Nastea sendian.

Au beti izan da. Baiña noiz gaurko bestean?

Gurasoak aleginduko dira seme-alaben naikerietara burua makurtzen, baiña alperrik, seme-alaben egarri ori asetu eziña da.

Seme-alabak aleginduko dira gurasoen eretxiak onartzen, baiña alperrik, ezin euren maillara eldu izango dira. Eta zelako goraberak ortik sortzen diran! Au sendirik geienetan eta gairik geienetan: eziketeari, erlejiñoari, jolasai, ikasketeari... buruz.

Nastea errietan.

Len agintarien esanak egiten ziran eta euren eretxiak, itsurik, onartzen ziran, baiña gaur? Erriaren barren-barrenetik, aztertze osasungarri bat sortu da eta agintzea iñoiz baiño gatxago biurtu. Agintari izatea omengarri izatea zan, eta gaur lan bildulgarri bat besterik ez da.

Erriak zurtu egin dira, eta ordua zan. Goitik eginda len onartzen ziran gauzak gaur erriak berak egin gura ditu, eta bere eretxien arauz. Zelako goraberak ortik sortzen diran argi ikusten dogu, ez dago azaldu bearrik.

Nastea, baita, aberri ta laterrietan.


Len erri txikiak, erri menperatuak eta besteen onurai begira egozanak, zurtu dira, eta, abots zoliz, azkatasuna eskatu dabe. Abots au entzun ez dautsenean izkilluz jagi dira. Eta orretarako eskubide osoa eben. Baiña zenbat negar eta neke euren elburua lortu baiño len!

Nastea, azkenez, erlejiñoan.

Len siñiskaiz beteriko erlejiño bat zan. Dana ziur eta argi ikusten zan. Eleizeak baieztu edo ezeztuten eban. Orrelan gizonen nortasuna ta bakotxaren barrua ez ziran bear dan bestean konturatzen. Baiña gaur bearrezko egiak izan ezik, gizonaren ardurapean geratzen dira. Eta zelako ezdabaidak, zelako nasteak! Urtegi itzal bat azkatu ba zan lez, etorri jakuz ondorenak.

Eta gure Erria be ez dago naste barik. Burruka neketsu ta sakon bat sortu jaku Erri-barruan bertan. Sakon aztertzea ta sendo jokatzea da gure benetako lana.

AGUR



Udazkena! Beroaren billa, ta gizonak jarritako zerga ordaintzera

LANGILLE ASPERGABEA

Oraintxe dira sei bat urte Arzubiaga'tar Zirilo, Arrese Beitia ta beste euskaldun jator askoren jaioterria dan Otxandio'ko semea, ixil-ixillik Jaunagana alde egin euskunetik. Bere bizitza luze guztian, euskeraren alde lan egin ebanak ez eban euskeraz illetarik izan. Begoña'n, ia ixil-ixillean, latiñez egin eutsen illetea. Akats gogor ori zuzentzeko ondo izango da beraren oroimentxu bat AGUR'en eukitea.

Or bizi dira oraindiño Manterola, Oar-Arteta ta besteren batzuk beragaz alkarturik lan egin ebenak. Eurak, nik baiño obeto, ezagutzen dabez Arzubiaga jaunaren bizitzea ta lanak. Ondo izango da, dakienak esaten ba'dauskue guri. Nik emen, dakidan pizka bat bakarrik esango dautsuet. Euskaldun ospetsu baten gomutea galdu ez dagigun.

Gazte-gaztetarik Jaunari ta euskereari eskeiñi eutsezan bere albide guztiak. Nork zenbatu Jaungoikozale ta Ekin albistarietako irakorlan bete eban arloa? Zornotza'n, parrokiko zeregiñak amaitu ondoren, bere euskerazko lanari eten barik ekin eutsan, baita orrela Kristau ikasbideai ta beste erlejio-gai askori indarra emon, batez ere Bizkai'ko errietan. Ez dot uste, gure umeak, orduan beste kristau ikasbide iñoiz jakin dabenik, ez Euskalerrian ez enparau errietan. Egiten ziran kristau ikasbide txapelketak, andiak, ederrak eta benetan sakonak izaten ziran. Gure errietako umetxuak, teologo bai-ziran bezela, erlejio-gaiak, bai buruz baita adimenez ere, adierazoten ebezan.

Gero gudako enbateak uxatuta, Arzubiaga jauna erbestetua izan zan. An be lan ta lan: inglesa ikasi ta ango irakasbideak ikasten asti guztia emon eban. Euskalerrira biurtzean, ostera be lengo lanari oratu eutsan, ta or ikusi genduan danok Begoña'n Santa Klara'ko zuzendari bezela, lekaimeen eleizkizunak zeatz bete ta gero euskeraren alde lan egiten.

Ostera be Jaungoikozale batzordea berbiztutea nai izan eban. Baiña gotzaiñaren baimenik ez eban lortu. Eta ixil-ixillik jarraitu eban kristau ikasbidea ta beste erlejio-argitalpen batzuk ateraten. Urte asko lepoan euki arren ta oso errena izan, or ebillen, aspertu baga, tirrist-tarrast parrokirik parrokira, Seminario, Ikastetxe ta abade-etxe batetik bestera, euskal idaztiak zabaldu ta saltzen.

Batek baiño geiagok itandu eusten neuri be: «Or bideetan beti ikusten dan abade zar eta erren bat, nor ete da?» Ta nire erantzuna: «Jainkoari ta euskereari bizia eskeiñi dautsan abade beneragarri bat da ori».

Euskal idaslea be ba-zan, baiña bere lanik goragarriena irarkolan lan egin eta euskerazko erlejio idaztiak, Euskalerri guztia arakatuaz zabaltzea da. Bere Begoña'ko bizi-etxea ozpotoz beterik egoan, idaztiak gela guztietan, lurrean, eskaratzean eta bazter guztietan. Benetan gauza gatxa an ibiltea! Bein baiño geiagotan esan neutson: Don Zirilo, txipillotak orbel artean bezela, zu be egunen baten idazti-orri artean itota aurkituko zaitue. Alegintsua, aspergabea, itxaropentsua benetan, Arzubiaga jauna.

Ezin aaztu ezelan be berak, eragozpen andiakaz egunetik egunera ta urtetik urtera bizi luzean egin eban lan andia! Bere alde, gaur, agurrik eta otoirik zintzoneak ditugu.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

SASI-JAKINTSUENTZAT!

Gorreri edo gor izan nai dabeneri, arrazoiak emotea alperriko lana ei-da, eta guk, alperrik galtzeko asti gitxi daukagu. Dana dala, oraintzu irakurri al izan dogun zerbait argitaratzea komeni dala uste dogu. Ba-liteke, gure jakintsu edo «intelectual» batzuk lenago irakurrita eukitzea, baiña ez dot uste erriaren aurrean, irakurleen aurrean, jakiñerazoko ebenik. Bai zera! Ori, euren teillatura arriak botatzea litzake, ta gure «jakintsuak», arro edo ero, ez dabe olakorik egingo.

1951'gn urtean, UNESCO deritzan alkarteak, batzar nagusi bat eratu eban erriizkuntzen irakaskintzari buruz. Au da, gure euskerearen antzera, «oficial» ez diran izkuntzak, irakaskintza maillara zelan erakarri leikezan aztertzeko. Orretarako; gai barriak erabilli al izateko; munduko aurrerakuntzekin batera joateko, izkuntzak gaurkotu egin bear dira... Zelan?

1954'gnean, Alkarte orrek, len esandako batzarraren erabakiak argitaratu ebazan «Monografías sobre la educación fundamental» izenagaz. Ludiko izkuntzalari ospetsuenen iritziak agertzen dira; euren artean, M. Sauvageot'enak 70'gn orrialdean. M. Sauvageot au, Paris'ko «École Nationale des Langues Orientales»en irakaslea da, ugro-finlandar izkuntzak irakatsiz.

Jaun onek diñoanez, ez ei dabe izkuntza guztiak gaurkoturzera eltzeko oztopo bardiñak izaten, baiña geienak —onein artean gure euskereak— itz edo iztegi aldetik izaten ei ditue utsunerik aundienak; iztegiaren urritasun au batez be, gauza barriak izendatzeko izaten da. Euskerea, aditzen edo itzen jokoan beste izkuntzak aiña aberats da; ez dago, ba, alde ortatik arazo okerrik.

Baiña, itz barriak osotzeko naiz lortzeko, Sauvageot'en iritziz bide oneik artu geinkez; bere ustez, egokienak lenengoak diralarik:

a) Itz barriak, zuster jatorritik ateratzea, oiñarri diran itzekin baliaturik, zatiak alkartuz eta abar: egazkiña, tximist-indarra...

g) Erbesteko izkuntzetan sortu dituen itzak artzea, baiña norberaren izkuntzako itzekin osotuta, areik jokatu daben erara: urrutizkiña, surizkillua...

k) Bear bearrezko litzakezan itzak erderetatik artzea, baiña oguzkeran norberaganatuz: elektroia, erretxinopore sailla (kimian)...

Sauvageot'en iritziz, azken jokabide onetan kontuz ibilli bear ei-da, ta al danik gitxien erabilli; bere ustez, oso kaltegarria dala diño. Orrela artutako itzak, jatorriz ez bardiñak izanik, norberaren izkuntzako batzuekaz antzekoak izan leikez, eta aberastu nai dan izkuntzea bakarrik dakienentzat oso ulergaitz. Au irakurtzean, Aita Lafitte'ri jazorikoa gogoratzen jat: «Euskerantoan» idatzitako idazti bat eskeñi eutsoenean, egilleari itzuli eutson, ori ulertzeko aiña gaztelera ez ekiala esanaz; ez da arritzekoa!

UNESCO'ko erabakiak irakurtzean, an bildu ziran goi-maillako izkuntzalari onenen iritziak ikustean, gauza bat agertzen jaku argi ta garbi: 50 urte lenago, orrenbeste madarikatzen diran Arana ta beste orduko euskelzale argiak, jokaera berbera artu ebela euskeraren onerako.

«Curar» eateko, osatu naiz sendatu esaten da'da.... zergaitik ez osagille, osategi edo sendagai? Ala sasi-liguista batek diñoanez, «mediku» esatea oba ete-da?

Lenengo bi araueri begiratu ezkero, berebil-auto-móvil; urrutizkin-tele-fono; egazkin-avión eta beste euskal kutsuzko «neolojismo» batzuk zentzunez sortuak dira ta euskaldun jator batentzat oso errezak. Baiña, zoritxarrez, gure artean, gaur, jakintsu apalak ixillik dagoz. Arrokeriz beterik eta ez dakit nik (ala bai?) zelako asmoak bultzaturik beste «intelectual» batzuk irugarren bide kaltegarri orretatik abiatu dira neurri barik: erdera guztieri ateak zabaldurik gure izkuntza ederra ondamendira daroe.

Euskaltzaindi'ko (orreintzat obeto Akademia) lendakari daben A. Villasante'k berak, «Hacia una lengua literaria común» idatzi dau. Baiña zelako «lengua común»?: Prantzeraz eta gazteleraz «común»? Ikusten dogunez, bear ba'da, biotzak eta adimenak «común» diranean, izkuntzea bera be «komunera» edo irolara eroan nai izatea ez da arritzekoa. Au da, serioski, malgizonki ta ofizialki ostikopeturik, gure izkuntzea *kakaztuki* ikusi nai izatea. Baiña Andonegi'ren bertsoak diñoen bezela:

EUSKERA, galdutzeko ez dago bildurrik,
iñun ez det aurkitzen olako indarrik;
sasi-jakintsu asko dabiltz galdu nairik,
asmo-txar oiek guztiak dirade alperrik.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

BASERRI - IRAKASTETXEAN

DEI BAT ATEAN

Nire etxean ixil-ordua zan. Atean argiegi-edo idatzita zegon: EZ DEITU ORDU ONETAN. Alan ere txirriñak txirrinka iñarduan...

Juan zan atera gure sukaldaria eta ara or apaiz bat, apaizera osoz jantzita, antxiña prakadunak sotanadunak'gandik berezten genituan eraz soiñeko beltz luzez jantzita eta ain zuzen ere neuri deika zegola.

Kaixo! esanaz agurtu ninduan. Kaixo! esanaz agurtzeko, adizkide izan bear, ba; baiña ez nuan lenengotan ezagutu. —Cordoba'tik nayatork eu ikustera eta ain urrundik nayatorkan ezkero or atean idatzita yagokanari jaramonik egin gabe dei egin yuat.



Orain bai ezagutu nuala eta besarkada bero bategaz bere deia on baiño obetotzat artu ta berialaxe asi giñan, antxiña bezela, geure euskal-gayak aztertu ta arakatzen.

Gizon ondo azia dan ezkero, bazkalduta etorran eta ez zun edaritik ere bere gorputzerako nai izan. Bakarrik adizkidetasuna berriztu, ta gure lenagoko auziak berbiztu.

Egiz gera antxiñako adizkideak, naizta ez diegula auziai begi berdiñez beti begiratzen. Urteak junak zirala-ta, bai-genuan zer esan biok. Iru ordu osoz ekin genien gure gayai. Gai orren artean BASERRI-IRAKASTETXE'tzaz ere ekin genuan. Eta urrengo egun baten biok, orrelako Irakastetxe bat ikustera juango giñala erabagi.

OREXA'ko IRAKASTETXE NAGOSIAN

Erabagi ta... egin. Izentatuko egunean emen zan nire adizkide kutun au; baiña oingoan ez etorran apaizeraz jantzita, gizon bezela baizik eta samako xerrenda ta gustiz etorri ere. Nik baiña, Inglaterra'n bezela, samakoz beintzat agertzen nuan apaiz nintzala. Nire adizkidea, esan dutan bezela, ondo azia dalako, gertuta etorran berak belbil ariña ta bazkaria ere ordaintzeko. Ez zion iñori burukomiñik eman nai, ez eta Orexa'ko Irakastetxe Nagosian arduradun izango ziranai ere. Orexa, Orixe ospetsuaren jayotz-erria dala-ta, nire adizkideak baizun aren jayotz-etxea ikusteko nai bizia, baiña geyago, an inguruetan pil-pil dabillan eusko-gogoa eta an aspaldi edegita dagon uda-ikastaro ta Euskel-Irakastetxea. Oxford'en bezela, Orexa'n ere erri osoa Irakastetxe zala bai-genekian; baiña, Oxford'en bezela emen ere etxe batzuk ikasleentzako ta beren batzarretarako egokiagoak dirala ere bai.

Ori dala-ta, ango Irakastetxe Nagosiko zuzendari dan apaiz jaunagana jo genuan; baiña erantzunik ez. Zer ba? Gaurko Irakastetxe askotan bezela an ere oporketan ote zeuden? An zelayan mutiko kozkorrak jokatzen zebiltzen; deitu genion bateri. Aitor edo Asier edo olakoren izena zuan. I, mutil,' ba-dakik nun yagokan apaiz jauna?

Eta mutillak erantzun: Ba, irakastolan egongo da, eta mutillak guri aurrea artu ta zuzen eraman ginduzan bertan albotxuan zegon baserri batera. Txirriña jo ta... ara nun agertzean dan erriko apaiz *eta* Ikastetxe'ko nagosi *ta* atezain *dan Latxaga izenpetuten dan euskel-idazlea. Beso zabalik artu ginduzan eta berialaxe barrura eraman.*

An areto garbi ta eusko-ederti laukoakaz ornitutako batean zeuden amabi edo amairu neska-mutil ikasle. Gutxi zirala? Zenbat ote zeuzkan Irakasleen Irakasle dan Josukristo gure Jaunak? Gure sarkeran neska-mutillok, iñork ZUT! esan gabe, zutitu ziran.

Latxaga jaunak gure izenak eta nire bizitzako gora-bera batzuk eman zizkien ikasleai eta alkarri buruak makurtuz agur egiñez jarri gintzan egun atako irakasmenari adi egoteko. Alako RECTOR MAGNIFICUS bateri zor zitzaion aditasuna.

EGUNEKO IKASKAIA

Aditzaz iñarduen. Ain zuzen ere «baldintza» eta «almenezko» aldiakaz iñarduen.

Nik «al ba'neza emango nizaioke» ta orrela. Ikasleek bata bestearen okerrak beraxek zuzentzen zituen, baiña an zegon gure Rector Magnificus begi-belarriz adi utsak betetzeko. Ederto benetan.

Ikaskaia bukatu zenean autukalditxoa izan genuan ikasleekin. Bauzuk Donosti'ko Ikastetxe Nagosikoak ziran; beste batzuk beste tokietakoak. Batek esan zigun bera langillea zala. Bai e? Gu ere langilleak gaituk ba. Eta lanatzaz ekin genuan. Paul deuna esku-langille zan beraxek bere idazkietan diñoskun bezela, baiña Atenas'ko jakitunakin adimen-langille agertu zan. Josukristo gure jauna Nazaret'en esku-langillea baiña Ierosolim'go jakitunakin adimen-langille.

Gerotxuago Orexa'ko Irakastetxe'ko mutillok atxurra lepoan zutela ikusi genituan solora bidean. Ikastolan ikasi zutena soloetan erein egiten zuten eta gorputza sendatu ta indartuz, adimena argitu euskel-bideetan euskeraz ibiltzeko.

Egun ederra Baserri-Irakastetxe Nagosian egin genuana.

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

ZEREKO ZERA ZERTZEN

«Lur» argitaldariak «Behin Batean» izeneko idaztia eskeiñi dausku oraintsu. Dakazan zazpi idazgaien artean, bat aukeratu dut gaur kritika apur bat egiteko. Idazlanaren idaztune edo atal bat artu ta ondoren nere iritzia edo ustea ipiñi, besterik ez dut egingo. Asi gaitezen, ba:

1.—«Napoleontxu Agirretxokolate...»
Bera il zaneko periodikuak eta geroko enziklopedia español batzuek dakarrenez: José Antonio de Aguirre y Lecube, abogado y político, primer Presidente del Gobierno de Euzkadi.

2.—«Euzkadi'ra urtero etorri daitekezan erbestetarrak amarreun baño eztirala izan biar...»
Zeatz bete ezkero, bear ba'da, zeu ez ziñan emen egongo, zorionez.

3.—«JEL... hura idatzi zutenek ez zutela Azkueren hiztegia 393 orrialdean ongi ikusi...»
Eta lagun-urkoari *kapable* deritxenak nun begiratu ete dabe?

4.—«Ba Euskaltzaindia Ibilbide Andian dago orain, 62 zenbakian...»
Edo Eibar'ko Ziña'n. Ez zine-tokian, sasoi artan askok ulertu zutenez.

5.—«Nafarroako erreginа Joana Albretekoa zen eta ez Abret-tar Jone!»
Ezta zeu Xabier Kintana ere, Javier Quintana baizik!

6.—«Bertan jakin nuen nola Euzkeltzaindijan sartzeko beharrezkoa zen zakillean (JEL-ean) afiliatua egotea, bai eta kristau katoliko, apostoliko eta erromatarra izatea...»

Bein euskaltzale batzuk «Euskeraren Adizkideak» batu giñan Euskaltzaindiaren babespean lan egiteko. Eta Euskaltzaindikoak onartzeko egozala, XX euskaltzaiñak eta-koak giñala-edo salatu eban ta pikutara gure asmo zintzoa! Beste oraingo euskaltzain batek esana dauka, mezatara joateari jarraitzen dautsola, gizarte-oikuna (ondo ikusia) dalako.

7.—«Euzkeltzaindiko lendari berria, ohitura sakratua (eta bedeinkatua) ez haustea-gaitik, apaiza zen...»
Etxaide, Lojendio ere bai? Ta noren aldizkarian idazten duzu zuk orain? Jakizu au: ainbeste keja artu zituala-ta Zirarda jauna, prest egoan amabosteko ori kentzeko, prantziskotarrei lumakada bat emonaz. Eta orduan don Klaudio Gallastegi'k esan eutson: «Ez olakorik, mesedez, euskera da-ta; billa egizu beste bide bat zuzendu daitezan!» Eta orreri eskerrak bizi zarie.

8.—«Batzarra hasteko lendakariak arrosarioaren lehen misterioa errezatu zuen...»
Obe ur bedeinkatua bota ba'leu, joko loirik iñork egin ez dagian. Ta San Anton'go euskal mezan iragarrita asko ta asko egin ziran euskal papel baten arpidedun.

9.—«Batzarrean zeuden zazpi serorak...»
Eta batzarrean dauden amaika andereño naspilzaleak...?

10.—«Bere lagun mamiek Koldo esaten bazioten ere...»
Eta berak bein baiño geiagotan imprentako letretan Koldo ere ipiñi du.

11.—«Ukronian fama haundikoak dira euzkeltzaiñen janaldiak...»
Bein baten Bilbo'ko kale baten euskaltzain bat, abade euskaltzale bi ta neu alkartu giñan. Batek txantxetan esan eban: Egin daikegu berton Euskaltzaindiaren batzarra! «!Bah, para lo que se hace...!» tartetu zan gazterik il yakun abadea. Ta euskaltzaiñak auxe gaiñeratu: «Aunque no se haga nada, ese día con la disculpa se come y se bebe a cuenta de la Academia» (sic.).

12.—«Zorionean, edozein irakurlek topa ditzake hitz (garbi) guztiok aita Muxika'tar Palgida-ren hiztegi ukronikoan...»

Iztegi oneri eta beraren egilleari goralpen ederrak egin zeutsozan zerorrek Euskaltzaindiaren biltzar baten Bilbo'n. Bitxikerien billa ba'zabiltz, irakurri Batasunaren-Kutxa'k diñoana: IPURDI = Atzeko zango edo hanken gaiñalde mamitsua (Nik ez dot atzeko zangorik, beraz ez dot ipurdirik edo ez naz gizona).

13.—«Herri Taberna, eta zer?... «Ertzain» batek bere patruila-kotxetik beste xartel bat atera zuen: Edantoki errikoya...»
Eta aldizkari baten zuzendaritzak iñoren idazlanei h-ak sartu, egillearen berbak eta esakerak aldatu ta bere araudikoak jartzen dabez ordez.

14.—«Sabino Aranak berramar zirela esan zuenez gero... ba... hura Abandoko arranoa zuan eta...»
Omeleta, kapable, bakantze, singletu, bulego, laudorio, proposamendu ta eñoratu, urliaren PROMESARENPEAN sartuz gero... Zer prometidu dautsue, Salamanca'ra eroango zaituela erdera ongi ikastera, ala?

15.—«Zezenak galerazirik diaudek. Eta ez duk, noski; oso ikuskizun krubel eta odoltsuak direlako, espaiñolak direlako baizik...»
ZEZENAK.—Guztiz arritzekoa da, izan be, gai au argitzeko gatxa bai'litzan eztabaidan erabillia izatea. Zezenen burrukak ez dira iñoiz izan egunerokoak, ez sarri egiñak, ez Españi'ko erri guztietakoak, ezta geienak billatu ta txalotuak bere. Probintzi askotan ez dira iñoiz ezagutu; beste batzutan, uri-buruetan bakarrik. Eta iñun egiten ba'ziran, epe luzeka bakarrik; uritarrak edo inguruko baserri bat edo bestekoak baiño etziran eurak ikusten bilduten.

Uste izateko da, beraz, Españi'ko erritarren artean eunetik batek bakarrik ikusi duala noz edo noz jostaketa au. Nundik nora, orduan, aberri-jaia izendatu nai izan dabe? (Gaspar Melchor de Jovellanos).

16.—«Minigonak, aldiz, neska turisten belaunetan ezik ez ziren agertzen...»
Nik orain arte sekulan ez ditut ikusi minigonak neskatillen belaun-aldean, ipurdi-alderago baizik!
—Tximiñoak, zenbat eta gorago igon, uzkia ageriago— (Oihenart).

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 18
21-15-07 urrt.
BILBAO-5

GAZTE

ZERGAITIK?

—ZERGAITIK unibersidadeko irugarren urte edo «kursoa» igarota ez da iñor iraultzaille lez agertzen?

—Munich'en amazortzi il dabez eta mundu guztiak negar egin dau. Burundi'n ainbat eta ainbat ill arren be, iñor ez da eurakaz gomutaratu. ZERGAITIK?

—Biok nai dabe patrikak beteta euki eta lagun urkoa azpiratu; bai komunistak, bai kapitalistak. Baiña gaurko munduan bata edo bestea izatea ez da bardiña. ZERGAITIK ezbardintasun ori?

—Neska bat ezkongaietara elduten ba'da birjintasun barik, galdua da. Laister, bere senargaiak utziko dau eta jente guztia beratzaz gaizki esaten ariko da. Baiña bere senargaiari ez dautso iñork konturik eskatuko. Eta au, ZERGAITIK?

—Euskaldunak beti berdiñ; gitxi izan eta alkar burrukan. Baiña... ZERGAITIK?

—ZERGAITIK agertzen gara margo guztien bardintasunaren alde, gero gure inguruko ijituak pekoz begiratzeko?

—Gazte batek: «Nire gurasoak ez nabe ulertzen». Eta olakoak asko. Baiña guk, gazte gareanok, ez gara iñoz itandu ia eurak ulertzen doguzan ala ez, ZERGAITIK?

—ZERGAITIK gizartearen aurka deadar egin, eta gizarte orren otseiñagoak gero ta geiago izan?

—Apaiz batek zeozer egitean (sakristiatik kanpora, jakiña) politikan sartzen da. Baiña erlijioaren izenean, politika bat goraldu eta eutsitea ez da politika egitea. ZERGAITIK?

—Jakintsuak diñoenez, gizona adimendun aberea da. Baiña ZERGAITIK erakusten dau lenengo aberea dala?

—Niestzche'ek esan eban: «Jainkoa il da». Gaur, Jainkoa'k esan leike: «Niestzche il da». ZERGAITIK?

—Galilea'ko erri baten Jesus'ek esan eban: «Alkar maitatu!». Guk txarto entzun bere agindua eta gaur esaten dogu: «Alkar armatu». ZERGAITIK ez doguz zaintzen obeto gure belarriak?

—Eredu bat: iru itz oneikaz esaldi entzungarri eta polit au egin geinke: «Gizarteko askatasuna, DEMOKRAZIAREN ESTRUCTURALISMO COYUNTURALEN aurkitu lezake». ZERGAITIK asmatu da olako iztegi barri bat, jentea zoratzeko eta demagogoak itz politakaz euren eskuak garbitzeko?

—Bizitza ontan, ZERGAITIK aurkitzen gara ainbeste bider «ZERGAITIK» esan bearrean?

—«ZERGAITIK» esatea ez da ain zailla. Erantzutea bai... eta, bukatzek o ZERGAITIK ez doguz erantzuten «ZERGAITIK» guzti orreik?

EZKAURIATZA'TAR XABIER

Boutique

Cerra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

AMERIKETA'KO ESKUTITZA

Lana berez astuna ba'da, ba-daukaz atsegin aldiak be. Ta aurtxo ikastaroan gabizenontzat ainbat pozaldi izaten dogu urte barruan.

AGUR irakurten dozuenok jakitun zagoze zelako ibillaldi zoragarria izan dogun aurten gure Kili-Kili'tarrokaz. Baita Gernika'ko areitz kerizpean Ipar-ameriketa'ko sendi batzukaz alkartu giñala be. Azkenez, talde osoaren argazki bat artzeko asmoa eukiela.

Argazki orren argi-irudi bat artu dogu gaur, baiña ez da izan ori gure barrua kilikilitu dauana. Eskutitz bat eldu jaku arkagiagaz batera, ta zelakoa bera! Begira an agertzen diran lerro batzuei:

«Joan-etorri zoragarria España'tik aurtengo udan egin genduana, baiña Euskal-Erria'n ikusitakoak, ta batez be gure alkartzea zuokaz aretz donearen magalean, betiko geratuko dira gure biotzean».

«Dei bat egin bear dautsagu New-Yor'eko Euskal-etxeko buruari, etxera etorri ta argazki oneik ikusi dagiazan».

«Batzar bat gertatu bear dogu New York'eko Euskal-etxean, emengo euskaldunak ikusi dagien Euskal-Erria bizirik dagoala, orko umetxoen zaletasuna azalduaz».

«Noizean bein, urte baterako ikastaroak izaten doguz gu irakasle gagozan Ikastetxe nagusian, ta zuon zaletasuna ikusiaz, Euskera ta



Erri'ko oituren alde, ez ziñake urte baterako etorriko New Jersey'ko Ikastetxe Nagusian ikasgaiak emotera?»

* * *

Jaunaren aurrean auspezturik, eskerrak emon geuntzezan gure lan apurrak Euskal-Erria'ren alde onelako erantzunak azaldu dauzelako. Albiste oneik poz aundi bat ekarri dausku lanean jarraitzeko ta Jaun goikoaren laguntasunagaz alan izan daitela!

ATXUTEGI'TAR JULENE

MIKEL DEUNA

Mikel Saindua, zaindu, zaindu Euskal-Erria

Xabier, nere lagun onari.

San Mikel'era, bai, basoz-baso, ametsetan, parrez eta negarrez, kezkan ere bai! Bizia, gaur beintzat, ain da zailla! Pago zar aundietan —Pagoa, Euskalerriko zuaitz maitea— udazkenaren urre ta gorriak. Emen ta an, garoak asi dira erdoitzen, zimeltzen, legortzen.

Gu bezela? Gure mundu gaixoa gogorkerian itota dago... Guda denboretan, Pakea nai degu... Ta, gero?

San Mikel'era iritxi gera azkenean, nere osaba ta biok. Emen, goian, aize osasungarria ta otza! Jendea, erruz. Euskera ta Erdera! Ikuskizun apartak... mendi urdiñak. San Donato beltza. Arakil'go ibarra, Goñi'tar Teodosio'ren aberri librea.

Gudari ospetsu onek bezela, aiturtu ditzagun guk ere gure oker, utsune ta pekatu astunak... Bearrean gaude ta gaur beintzat, denbora gogor eta latz abetan, Euskalerriak ez dauka beste biderik: Bizi edo il!

San Mikel'eko Eliza berezi, zar, illun, geltsuan —Aldarean dagon retabloa zoragarria da— alkartuko ote gera noizbait gogoz eta biotzez Euskaldun GUZTIAK? Gazteak eta zarrak, ezkerrekoak, erdikoak eta eskubikoak; espetxean daudenak eta erbestean irauntzen dutenak. Guzien artean sortuko degu —Jainkoak nai ba'du, guk nai ba'degu— Euskalerri Berria, denentzat obea! Ez al da ala, nere gazte maiteak?

Burruka, sakrifizioa, negarra, itxaropena era bai —alaitasuna zergaitik ez?— ori dena eskatzen digu Euskalerriak. Norbaitek bai al du geiago? Utikan koldarrak, motelak, pardelak, alperrak, itxura zaleak! Emen ez dago mitorik! Aurrera Euskaldun Fededun! —Fedeak ez dauka zer ikusirik azalezko oiturekin, sasi-siñismenekin, integrismoarekin— Fedea, Jainkoaren doaia bait-da!

Or beian, Igaratza aldean, Irumugarrieta arkaitsua, zelai zabalak, ardiak, Una'ko putzu xarmanta! Izadia gaur ere, polita da, iñoiz baiño politagoa! Urdin, more ta oriz betea!

Teodosio'ren kateak puskatu ziran... Noiz gureak? Baiñan bitartean, zenbat naigabe, zenbat odol!

MATXIN

KONTU KONTARI

EZ OBIDU

Ez, ez pentsau euzkaldunok aiñgeruak gazela. Ez gitxia be...!

Okerrak, terkuek, mando gastie baiño zekorrauek, ori bai askotan.

Goiko pagariko bestian arbolie jo..., e?

Beko zoloko zerradurako arkaxixak aldatu apur bat..., e?

Gau illunean be, al ba'litze mojoie... be?

Neu aurrerengo...!

Alako baten, beko erreka txorko egalian, zelai txiki modoko bat da, eta Errejistruen ez dauko agiririk. Eziñ ba erabagi an dauzan lau paguek zeiñenak diezan... Alan gauzak, aldamenekuek diño; beriek; neuk, errezoi bardiñien: neuriek. Bera, barritz, ni baiño aberatsa.

Ba, zer da kontue, izurraudaille tontue; gau baten, obeto esateko, egune zabaldueran, jo ta eratsi-txuaz arbola bixok tokamenien neuriek.

Urrengo baten, deixe Kusgaure. Kontziliatzion, diño Kues Jaunak, Alkar kompontzie, aurrera auzixen jo barik, ba.

Neure abogau orrek diñoste:

«Itxixozu ausuntuorri bakien, eztaukezu errezorik, aurrera joteko beste-ta. Ara, eginzue arbolok erdi bana, ta kitxu. Bakoitxa bere etxera, eta gabon».

«Ez, ez konde!» esatotzek abogau «orri». «Aurrera joten bogu, zer...?»

«Ba, kastau diru mordue alperrik...»

«Bai, ori be alan izengo da. Baiña, bestiek eztauko gasturik ala?»

«Bestiek pe kastau bier, bardiñ».

«Ba, jo. Burgosaiñoi'k, jo. Ori «txarrixoi» belaun biko ikusi arte».

Gizona astotu ezkero ezta mantsue, ez gero.

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

BARRENKALE BARRENA

Egunotako zazpi kaleen azalpenak burutuz, ezari-ezarian azkeneraiño gaurko ontaz eldu gara. Geroko baten nere utsarteetan eta Jauna lagun, gaur amaituriko lantxo au beste Bilbo-zarreko kale batzuekaz al giñoan biribiltzea gura neuke.

Esan genduan lez, Barrenkalea orduko azkena zan. Urteak aurrera, beko aldean Areatza'runtz eta Barrenkalearen jarraikeran, kale barri bat irasia izan zan. Kale barri au guztiz azkena zanez iraspen-sortzean batetik, eta illaran eta zerrendan ere oraindikarren bestea baiño barrenagoa bestetik, Barrenkale-Barrena izentatua izan zan. Ordutik, euskal toki-izen onek gaur arteraiño darraikio.

Kale asieran, Erribera'tik beste guztiak lez. Arbolantxa ta Pero Nobia'ren Etxedorreak egozan. Onetan ez, baiña beste guztietan Barrenkalearen antz aundia gaurko kale onek izan ei-eban. Egungo egunean ez dira ain bardiñak. Ez dauko Barrenkaleak aiña ardandegi, baiña ori ta be, Bilbo'ko jantoki punterengoen artean bertan daurkiguz, Guria, Txoko ta Txinbo esate baterako. Guria batez be oso entzutetsua egitan. Zabalkuntz aundikoa bera Ezkontz-Jaunartze bazkari-azkariak gertatzen ezeze, baita euskal kutsuzko edozelango janariak txit jangarri, guri-guri antolatzen. Beste biak ere ez dira makalak. Gero, eguneroko bazkarietarako, edo amarretako salda naiz arratsaldeko ogibitarteko egokiak Saibigain'en. Ondo irabazitako ospea dabe.

Zazpi-kaleetako kale ontan, salerosketako mueta barri bat nabaritu oi dogu. Emendik asi ta Santa María, Pelota ta Dorre izenezko kaleetara batez be luzatu oi dana: Burdindegi edo burdin-saltoki dendakaz aurrez-aur topo dagigu. Erribera inguruan alde bietara ta gure kale onen sarreran lenena Erkoreka'rena dogu, Santa Maria ta Txakur kaleetan dagon izen berberaren denda ordeko bat lez da. Jaime Erkoreka, oso lagun ta ezaguna bera, jabea dogu; ta guztiriko burdin tramankuluak, langaillu ta landola tresnak, neurri zeatzdun galtzairu, kirolketa gaiak abar eta abar saltzen. Erribera'ko ertz orretan bertan eta beste orren aurretik Benito del Pozo'ren burdindegia dago. Aita ta seme, bien artean, irurok doitxeraz be mintza daroe, ta erakusagertoki polita bide dalarik, giza-pillo galantaz beterik dakusgu. Kalearen erdian Iturbe'renaz aurkitu oi gara. Oso euskerazalea bera, bardin Otxandio'n jayoriko bere emazte begikoa. Seme-alabak euskera gitxiago dagie. Betiko kontua! esango luke markiñar Arrizabalaga'k, Elgeta'n besoz-beso biok bazkaldu gendun, ta inguruko guztiok bere ixtori-mixtoriekaz guraiñ barre egin.

Otxandio'az, nire umetako uda-lekuaz jarraiturik, an bai guda aurretik egiten gendula danok euskeraz. Oraingo barririk ez dakit, urteak diranez ez nazala Andikona'tik zear Bulkano'raiño eldu. Udaldietan amalau urte errezkadan egona naz, ta Bilbo'n, alondigako Aranguren anaiak ta beste berein otxandiotar len-ezagunak daurkidaz, ta pozik egin be berbalditxo bat eurekin.

Kale amaieran, etxetzar izugarri batetegaz topo dagigu. Guiard edeslari jakintsuari jarraituz, beste baten al ba'dogu, onetzaz zertxobait desakegu. Oingoz au bakarrik dirautsuet, bertan beste burdin-denda ospetsu bat dogula, izenez Yohn edo «La Bolsa», baiña zer ikusirik geiago Dorre kaleaz dauko ain zuzen, ta gaurkoz naiko dala deritxat.

Burme-ol bat be, L. Zudaire'n izenez, ia kale azkenean ba-dogu. Burme salketan baiño burmegintzan batik bat daragoiona. Erredixetan A. Vélez, kale asieran dogu, ta Tejidos Juana'k kale erdian oialak eta eunak opa daroaskuz. Oiñetako ta guztiriko narru ondu apainketan entzutetsua Curtidos Onena izentatu bearra dogu, bazkide biak ezagunak, atan be euretik Eliseo aspaldi laguna izanikoa. Ikastetxeetan, kale asieran Hurtado-Larrinaga, biok adiskide leialak, Larrinaga'k euskera garbian mintzatuko zaitu.

Asieran esan dogu, kale onek ez ditula Barrenkaleak bezain ardandegi ta edari toki. Dauzanak, ori bai, txit ezagunak ta geien bat euskal izenekoak dozuz. Euren jabe batzuekaz be nozipein euskeraz diardut, len esandako jantokiak at, beste batzuen izenak bere illaran jarriko dautsuedaz. Ots, Kirru, Bizkaya, Zazpi-Bide ta abar.

Eldu jat azkena; beste kale batzuekaz jarraitekotan zuekaz barriro izango nozue. Zerrendatxoen izen-aztutzeak ta bestelako utsegiñak parkatu. Euskerean ez ezik gure bizimodu ta zeregiñ guztietan beti osotasuna billatu bearrean gagoz. Zer bi oneitan be, ori berbera guztioi opa dautsuet. Ekin bulartsu arlo bietan ta ondo lan dagianak nabaritzen dauan gentza nabarituko dozue zuek ere, Oingoz ba, AGUR'etik agur!

ARREGI'TAR JOSU

ONDARRU'KO KUKUAK

Munduko gauzarik politenen artean bat txoria da. Txoria danoi jaku atsegin, ta abeslaria ba'da oraindik begikoago jaku.

Zer atsegiña, udabarrian goizean goiz mendira irten eta, txoritxuen txorrotxioa!

Egia, txorien kanta soiñu guztiak ez dira mailla batekoak; batzun eta beste batzun soiñuak alde ederra dabe. Ta kukuarena ez da atsegiñena, ezta urrik emon be.

Baiña txori onen abestia pozik entzuten da; batez be negu baltz ondoren udabarriaren geznari edo mensajerua izan oi dalako. Ondarru'ko Txordo'k esango leuskuke ederto barruan zer poz artzen daben urtero iñok baiño len ku-ku otsa entzutean.

Ta olerkariak eurak be kuku soiñua beste edozein txorirena baiño geiago aitatu dabe euren olerkietan.

Ez, kuku soiñua ez da auntzaren gaberdiko eztula. Ez orixe. Ondarru'ko txorizaleen artean buruauste naikoa izan da aurtengo udabarrian kukuaren ku-ku dala ta ez dala.


Gure adiskide Olea'tar Andoni'ri iñori baiño len gogoratu jakon kukuak bere soiñua zer notatan emoten daben jakitea. Ta diapasoia atzamarretan ebala Gorozika aldean denpora ederrik emon ondoren artu be bai: SI-SOL. Ta ezpairik izan ez eian urrengo baten be artu barriro ta lengo nota berberak.

Ta asi zan arro-arro beste txorizaleai berak jakindakoa zabaltzen. Baiña itxura zanez beste geiagok be alegiñak egin zituen gauza bera jakin naian. Ta au polita! Danak nota desbardiñak artu zituen. Olea'k SI-SOL, besteak [FA-RRE ta irugarrenak MI-DO Ta or ibilli ziran odolak buruan artuta danak beriagaz urten nairik.

Ez dot uste eztabaidan ibilteko kontua danik, ba txoriak be gizonak lez batzuk baritonuak-edo izango dira ta beste batzuk gorgoritoak egiteko gai izan eta gogoko jakenak. Gaiñera kukuen nota desbardiñetan akorde modernoren bat be egon leiteke.

Dana dala, kontu au dala ta be gure bertsolari ixillekoak barriro bertsoak atarata Olea'ri bialdu eutsazan. Ta ondarrutarrak irakurri daiezan emen ipinten doguz.

KAMIÑAZPI



OLEA TA KUKUA

1
Negu gogor ta latza
Urrutzen danean
Udabarri biguna
Barriz agertzean
Pizti eta txoriak
Mendi oianean
Kantuz ari dirala
Eguna argitzean


2
Goizean goiz jaikirik
Baraiku'n kukuak
Bardin erantzun oi du
Korteta goikoak
Zubi-barri'tik entzun
Olea maixuak
Zer nota ote diran
Orien soiñuak

3
Seguru egoteko
bi nota oiekin
Gauza bat pentsatu du
Domingo Paz'ekin
Mendira juatia
Biak alkarrekin
Diapasoi bana ta
Magnetopoiakin

4
Baraiku gora igon
Eta bereala
Kukuak asten zaie
«KU-KU» dariola
Domingo'k orduantxe
—Ba-daukat: LA-SOL-LA
Olea'k erantzuten:
—Ori ezta ola!

5
—Zelanik esan zeiñe
Ori ezta ola!
Ez dozu ba ikusten
Grabauta dagola?
—Barriz ere diñotzut
Ez dala LA-SOL-LA
Baizik LA bemoleko
DO-LA... DO-LA... DO-LA

6
Olea'k lan eder bat
Egin dualako
«Kukun» kantua orain
Urte guzirako.
Len aundia ba'ziñan
Txorizaleentzako
Orain aundiagoa
Eta betirako.



KUKUA

IXILLEKOAK

KIROLAK

NERBION'GO ESTROPADAK

Jaunak! Zer gertatu zan estropada ortan? Orio gora ta Orio bera, ba-zan zer esan ugari. Oriotarrak, nere ustez, izan ziran onenak. Tamalgarria izan zaien gertakizuna, iru arraunlari on zaurituak izatea. Baiña besteak ere ba-zituzten beren akatsak: getariarrak ere iruren utsa zeukaten. Ala ere, ortzak erakutsi dizkiote besteeri. Beintzat or daude argi ta garbi: bi aldiz oriotarren aurretik etorri dirala getariarrak.

Orain, Donosti'ko jokaeren berri eman dezagun berriz. Dakigunez, egualdi kaskarra zegola-ta, galerazi egin zuten jai artako jokaldia, urrengo asteazkenera arte utzirik. Getariarrak jokatu nai zuten. Egualdi txarraren aitzakia zeukaten beste patrioak. Egun ortan jokatu izan ba-zan estropada ura, dudik gabe, ta ziur-ziur gaude, GETARI izango zan garaille, bandera ta lenengo zaria irabaziaz.

Zenbat aldiz jokatu da Donosti'n egualdi txarragoakin? Bein baiño geiagotan noski. Zergatik, beraz, galerazi zuten egun artan...? Arraunlari onak ikusten dira, egualdi latzakin eta itxaso bare-bareakin... Ortarako, arraunean ondo jakin bear! Olatuen gora-bera eta beste olako jakimenetaz saituz. Ala ta guziaz ere, getariarrak beti oriotarrekin, alkarri ortzaka, batera eldu ziran; lenengoan iru segundo ta bigarrenean BAT bakarrik bitarte. Orrek esan nai du, getariarrak ogetaka urte barruan berriz etorri Kontxa'ra ta erakutsi dutela zeintzuk diran arraunean.

Geroz, Españi'ko sariketan, getariarrak, bi aldiz, oriotarren aurretik! Guzien artean BIGARREN geldituaz! Zer nai dezute geiago getariarren aldetik? Eta orain, Nerbion'en zer gertatu da? Oriotarrak aitzakiak eman dituzte. Bai, jakiña, galtzen danean, aitzakiren bat eman bear, noski... Zergatik nai ez esan, getarriarrak oriotarrak baiñon obeagoak izan dirala? Or dago argi ta garbi, guzien aurrean.

Lenengo jokaeran larunbat 23'gnean, estropada estua izan zan. Baldin getariarrak jokatu izan ba'zuten oriotarrekin, beste albisteak entzugo genitun. Tamalez, santanderdarrak izan zituzten alboan, ta ala ere, naiko egin zuten aurrena elizean. Bigarren ekiñaldean, Astillero'k eta Orio'k besteekin jokatu zuten. Azkenik, bietakoak baturik, orra nun GETARI gelditu bigarren!

Eta zer esan igandeko jokoaldiaz? Astillero, Orio, Getari ta Pedreña'k jokatu zutenean? Jakiña, guziok dakigun gertaera izan zan. Ba-genekigun astillerotarrak aurretik elduko zirala... baiñan, zer beste bi oiekin, Orio ta Getari'kin...? Getari'k ia iru segundoko aldia atera zion larunbatean Orio'ri. Igandean, Orio'k asiera ona aman zun; getariarrak bidean arrapatu zituzten, baiñan oriotarrak azkarrago biran. Getariarrak latzago, astillero kontuan izan gabe. Berealan, getariarrak aurrea artu zioten oriotarreri, ta bigarren birara Astillero lenen ta Getari bigarren eldu ziran. Une ortatik ikusia zegon zeintzuk izango ziran garaille. Nik artu nitun markak auek izan ziran:


1.—Astillero, 20-33-3; 2.—Getari, 20-41-1; 3.—Orio, 20-53-3 ta 4.—Pedreña, 21-12-7. Ta, aurreko jokaldiakin batuaz, danera onela gelditu ziran:

Astillero, 41-20-3; Getari, 17'7 segundora; Orio, 35'1; Santander, 1-2-0'ra; Pedreña, 1-2-7'ra; Kaiku, 1-49-7; San Juan, bi minutera, ta Portugalete, 2-45-9'ra.

Bukatzeko, argi ta garbi dago, aurten, GETARI izan dala JAUN ETA JABE!

E. OZKIN

ZELETA'RI OMENNALDIA



Tamalez, berandu eldu zaigu jai-aldi onen egitaraua, ala ere, azkenengo egunetarako zabalduko delakoan, emen jartzen degu:

Lasarte'ko erriak, bertako seme ospetsu onekin zorretan dala ikusirik, bere omenez Euskal Jakintzako Astea eratzea erabaki du.

Garmendia'tar Jon, «Zeleta» jauna, erri ontako «Largo-Enea» etxean jaio zan, eta gazte-gaztetatik euskera landu eta indartzera beartu zan. Idazale gorengoenetakoa, Euskaltzain osoko izatera eldu zan eta or degu orain ere. Bere idazlan ugarien artean, ba-du baita Lasarte ontako jazoera ta gogarrietzaz idatzita idaztiño bat ere.

Bere omenaldi onetarako, ona emen egitaraua:

Urrillak 8, igandez: Idazti ta Diska Eguna

Goizean-goiz, «Zunzurros» taldekoen «jeiki adi»a.

11'etan, Idazti ta Diska Azoka irikitzea.

12,30'etan, Bertsolari ta Abestaldeak: Urretabizkaia, Zendoia ta Larrañaga bertsogintzan. Abeslariak: Iñaki Arriaran eta Unai bikotea.

Urrillak 9, astelenez: Itzaldia

Arratsaldeko 8'retan, Lekuona jaunak: «Bertsolaria, euskeraren euskarri» gai dula.

Urrillak 10, asteartez, Itzaldia

Arratsaldeko 8'retan, Murua jaunak: «Ikastolak» gai bezela.

Urrillak 12, ostegunez, Aurren Euskal Jaia

9'retan, Txistularien kalez-kalezkoa.
10'30'etan, Zamaburu'n zelai MEZA.
11'15'etan, Dantza taldeak, inguru guzietan.
12'30'etan, Okendo enparantzean aurren jaialdia.
16'30'etan, Txistulari ta dantzarien kalejira nagusia.
18'30'etan, Zamaburu enparatzan talde guzien dantzaketa.

Urrillak 13, ostiralez, Itzaldia

Arratsaldeko 8'retan, Gastesi jaunak: «Euskera gaur», irakasketa.

Urrillak 14, larunbatez, Abes eta ereskintza

Gabeko 10'30'etan, Zamabu enparantzan, abeslari abek: Guk taldea, Labegeri, Etxamendi ta Larralde, Pello ta Pantxoa.

Urrillak 15, igandez, Omenaldia

8,30'etan, «Jeiki-adi».
10'etan, Erri-meza.
11'30'etan, Lasarte zine-aretoan, omenduaren itzaldi labur bat, ta bertsolariak: Etxeberria, Lizaso ta Agirre. Bitartean, oroigaillu bat eskeiñiko zaio «Zeleta» jaunari, Lasarte'ko erriaren izenean.

Ordu bietan, Oturuntza, errikoia ta lagunartekoa.

17'etan, Jai nagusia Zamaburu enparantzan: Bertsolari, iru izentatuak. Abeslari, Antxon Valverde ta Benito Lertxundi, eta Bizkaitar dantza talde ospetsua dan «Andra Mari» jatorra. Ondoren, dantzaldiak gabeko amarrak arte.

* * *

Eta zer besterik esan; an izango gerala, batez ere illaren 15'garren ortan, adizkide pillo ederra besarkatzeko asmoan.

IBUR



Zure ibillaldietan
lasaiago izateko,
gure Bankoak danerako
eskeintzen dautsuzan
bidarien txekeak
naiz eros-txartela
dozuz egokienak.

BANCO DE BILBAO

Onek emakumeen eskubideak onartzen ditu.

Aprobado por el Banco de España.

ALLENDE ZINTZILLIKA

Txile'tik datozkigun berriak, Allende'rentzat ez dirala guztiz itxaropentsuak esan genezake. Gizakiak bear-bearrezko janari-jantziak gora ta goraka dijoaz, gelditu ezin duan abiada bizian. Kalean, etxekoandreak, sartagiak eskuetan, asarre-agerpen zaratatsuak noiz-nai eratzen dituzte. Orobat ikasleek kalean eta Ikastetxeetan. Erdi maillakoak, komertziante ta abarren erremiña ez da nolanaikoa, eta zer esanik ez lantegi nagusiena.

Politika aldetik, berriz, zer esanik ez. Zatika-zatika marxismoa ezarri nai duala egotzi diote leen ameto egin zioten kristau-demokratek, eta laguntz ori ukatu ezezik burrukarako ere prestatu dira. Eta Allende'k, beldurrez, atzera-pausoa egiñik dabil, zenbaitetan. Eta auxe, leen lagun miñak zituan gorriak ez diote barkatzen, beren iraulketa lenbaitlen ezarrita nai bailuteke. Eta «ezker berria» bultzaka datorkio.

Egoera onek, geok ezagutu genuan zerbait gogoraraztен digu: Largo Caballero bat, bere neurrigabeko eskeaz Españi'ko Erkala ondatzen. Alderdi guzitakoak kontentagaitz dabiltz. Agintzen dagoan «Unidad Popular» bere barrutik pitzaturik dakusgu. MIR («Movimiento de Izquierda Revolucionaria») eta P. C. alkar joka dabiltza. MIR'ekoak komunistei «partido de orden». batean biurtu dirala esaka, eta, bestalde, Barruko Ministroa dan Bergara jaunak MIR'ekoei «pseudo-revolucionario» batzuek dirala, begiratzeke erabiltzen dutela gogorkeria eta indarkeria, eta fatxisten eta eskubitarren jokabide ber-berak darabilzkitela, esaka.

Baiñan Allende'ren arazo bakarra ez da MIR eta P. C'ren arteko burruka. Egoneziñak nazioaren zabaltasuna artu du. Gobernua eta bere laguntzaille dan P. C'ren aurkako burrukan, esan bai-genezake Allende bezin galtzaille irtetzen ari dirala arrai-gorriak (komunistak). Eta MIR'ek ezezik kristau demokratak ere P. C. indartsua zan kabi-tokietan, orotan, burrukatzen dute.

Eta ara siñiskaitzentzat jazoera batzuek: CUT (Central Unica de Trabajadores) 1953'garren urtean jaio zan. Jaiotegun beretik marxista, komunista eta sozialisten kabia zan. Zortzireun milla langille-bazkide ditu, eta beti izan oi da komunisten politika biderako etxe bat. Onegatik, Allende'k bere aldeko erakunde bat bezela azaldu du beti. Erakunde onetan izan dira bada, arestian, lendakari berri bat izendatzeko auteskundeak. Leen lendakari zan Figueroa azaltzen zan berriro. Argi bada, aurreko auteskundean % 20 atera zuten kristau demokratak; orain, % 37,7 lortu dute. Garaitz ederra, beren xaltxan, komunistak eta sozialistak % 24 lortu dutenean bakoitzak.

Sindikalismoan bakarrik ez zaie gaizki atera komunistei eta Allende'ri. Oraindik jipoi latzagoa artu dute universitario arazoan. Auteskundeak emen ere, iru gauz auek aukeratzeko; Errektore berria, Diru-Zuzendaritza eta Ikastetxe Nagusia erabiltze-era. Kristau demokratez eta oposizioko beste alderdi batzuez osatzen zuten «Frente Universitario» deritzana, iritzi eta eske auekin: Ikastetxe-Nagusi bat maxiaketari irikia, pluralista eta demokratikoa.
«Unidad Popular» eta gobernuzaleak («demokrata-popularrak» dirala aazturik) au nai: Ikastetxe Nagusi «militante» bat, gobernuarekin adiskide ta onen esanetara lebilkeana.

MIR aurrerago oraindik. Baiñan jokoan zegoana akademi azkatasuna baiñon geiago izaki, Ikastetxe-Nagusiaren esku gelditzen bait-dira irratiak eta telebixtak, eta ontarako nazioaren presupuestoetatik % 3,5, gutxi-gora-bera.

Larogeitabi milla akedemiko, ikasle ta langilleak eman zutenak autarkia. Eta pluralista iritzia nagusi irten, egizko demokrazia oraindik bizi dala erakutsiaz. Kristau-demokraziak, % 52 lortu zuan; Unidad Popular'ekoak, (gobernua) % 44; eta MIR'ekoak, Allende'ren illoba bat zala aukera-gai, % 3,4. Orain, jipoiaren ondoren MIR'eko marxista auek ba-dabilzkite zemaiak aski.

Aztiak ez izanarren, gure uste apala da Allende'k aski lan izango duala zaparraldi onentzat aterki bat arkitzen. Goitik eta beetik erasota ikusten da, eta berandu xamar dala, deritzaigu, konturatzeko demagogoa izatea gauz bat dala, bestea gogoa izatea, eta oraindik zaillagoa bestea: ez dagoan tokitik ogia ematea.

Au idazten ari naizenean, irratiak berri bat dakarkit. Frei, kristau-demokrata ospatsua, urte batzuen atsedena ondoren, berriro politika burrukan murgiltzen dala. Onek esan nai du kristau-demokratak arpegia erakustera dijoaztela beren buruzagi duten Frei, aurrean dutelarik.

Ez da gizon makala izango Allende, ontatik ongi ateratzen ba'da.

UXOLA

KATOLIKOAK LONDON'EN

Eun eta irurogei parroki katoliku dagoz London'en, eta zortzi kapillauntza ikasleentzat. Onetarik seik erbesteko Erriarteko Ikasle Katolikoen ardurea dabe.

Pasio'tar Hilary Culahaune Aitak jakin-erazten dauts, ta jarrai:

Westminster'eko Gotergi-nagusiak Tamesis'ko Boroughs-auzune ta errialdeak beregan dauz. IX Pio Aita-santuak sortarazi eban 1850'gn urtean; eleiz-barruti menpekoak eukazan asieratik, orain amabiraiño eltzen dira. Jakiña, abade-jaupari atzerritar ugari dira, lekaide ta eleiz-barrutiko. Konta ezin moja-lekaimeen laguntzarekin, Egizko Eleiz Ama'ren onurea ta geitzea indartzen alegindu ta arduratuz. Anglikano'en bide-oneratzea be bai-dabe.

«Ara» diñost Hilary Aitak, «gaur bertan, arratsaldeko bostetan, biurkunde eleizkizun bat emongo dot. Gauza bi oneik nabarituko dodaz gaiñera: Westminster'eko misio lurrak Ego-ameriketa'n eta Erlijio-ezierea Eleiz-barruan».

«Bear-izana dagon munduko edozein alderako abadeak eskeintzen dira. Ta olan, London'eko Westminster Eleiz-barrutiko eleizgizonak, Peru, Txile, Brazil eta ameriketako beste errietan dagoz, baita Aprika'n eta sartaldeko Indietan be. Euren Kardenal dan Yolin Heeman jaunak ikustaldia egin eutsenean, London'eko katolikoen gogamen eta otoitzak laguntzen eutsela adierazo eutsen. Ameriketa'ko artzain-jarduerak eta beargintzak, London' eko auzo txiro elbarrenetan antxiñetik agiten izan dana dau eredu: langilleak atondu; sendi-arazoak zuzendu; diru-gordetzera oituratu; ordikeriaren aurka burrukatu; agintarien aurrean orrein eskubideak eskatu ta lortu, ta alan, Kristo'gana erakarri, ta Bere betirauneko irakaskintzak erakutsi».

—Eta orain, Hilary Aita, beste gai bat: Katolikoen ikastoalak.

«Ai! eskolak... Oneik bai zeregin itzela, arlo ardurazkoa, lan-arazo gogorra. Ez gizonakandik saririk artzeko, ezpada Jainkoa onetsi,eder-eretxi ta atsegin izan dagian bakar-bakarrik».

—Erlijio irakaskizuna aintzakotzat aututen ete-da?

«Ba-dakigu ez jakoela ardura ainbesteri erlijiogai ta buru austerik, baiña euren artean itaundu bear izango dabe, zergaitik egiten diran ainbeste alegin orretan, ta, azkenez, burura sartzen jakoe, katolikoen eskoletan euren semeak ezi ta irakatsi ezketiño, euren eta asabaen señismen, oitura ta gogoerak eutsi ta iraun-araziko dabezala».

—Ta, aleginduten ete-dira orretan?

«Bai ori, ta ez gitxi. Konturatuko zara, katoliko gurasoak elburu ori lortzeko euren buruak ukatu egin bear dabezala sarri askotan: aisetasunak itxi, andiagoak eta aberatsagoak izateko bideak galdu...»

—Orain, auxe dakust: zuk diñostazuna Euskal-Erria'n be gogoratu bear leukeela. Eta katoliko siñismenera dagozan euskotarrai etxakoela txarto etorriko ingalandar katolikoen eginbidea begien aurrean erabiltea, gogora ekarteko.

«Zuek, euskaldunok, kristau-katoliko onak zareela ba-dakit.

—Orain, esan egistazu, ea laterri andi onen agintari ta zuzendariak onartzen daben zuen ikastolen beargintza ta lan-saillea.

«Zorionez, agintariak, begiratu ta ikustaten dabez gure ikastolak be, ta onein on-ibilleraren ardurea be izan. Gizakera adeitsu onegaitik, umeak eta gurasoak kristau siñismena jarraitzeko azke ta buru-jabe dira».

—Orrela, zuen Aberri andi onetan, batasunaren agerlari ta irudi, katoliko ikastolak izango dirala konturatzen naz.

«Zeuk diñozun lez, alantxe da. Beti konturatu bear dogu, gaur ikastoletara doazan neska-mutillak, biarko guraso izango dirala, ta euretarik asko, irakasle, abade eta arduradunak».

* * *

Katoliko ikastolea, kristau eziketea danez, obeagotu gura dau, ta gizadiaren utsuneak, mugadura eldugabeak ezagutuz, elburu bat ezarriten dau, gizarteari laguntzen alegindurik eta onen nai ta beartasunen adieratzaille izatez. «Jaungoikoaren erreiñua gure artean dago. Zeruak eta ango aingeruak inguratzen gaitue. Betierea lanbro artean nabari da».

1884'gn urtean Turin'go salesianotarrei Juan Bosko deunak idazten eutsena Erroma'tik, esan leye ikastola guztiai: «Begirunea, ta kristaeroapena ta adiskidetasuna, ta zabaltasun tolesgabea, egiazko maitasun alai kristarra izan bear dau, neska-mutil eta arduradunen artean».

LETONA

IPARRALDEKO ANAYAK

Batasuna... urte bete joan da gizon batekin alkar izketa izan nunetik. Etzan baserri-jatorrizkoa, ezta ez-jakiñetakoa ere, baiña atxe-zalea bai, eta esan nion: Orain artean, euskera idatzia atsegiña izan degu, bai Eliz-liturjian bai beste liburu ta aldizkarietan, orain urte gitxi bitarte irten ziran geyenetan; eta orain, zertako orrenbeste istillu eta berriketa, ondo zegon gauza okerrago, traketsago ta zaillago jartzeko?

Jauntxo orren eranztuna: Bidaso'z andik baditugula anai euskaldunak eta ayek erabiltzen dutela h'a ta ayek ez baztertu, edo ayek batzeko bear dala. Ez dakit nik asmo ori ote dan egiazko sustraya. Ez ote da tarte orretan bakoitzaren setakeria edo eder-erakutsi biurrietako bat; beti tiki-taka ari dan zerbait?

Beti pentsatu izan det, anai oyekin artu-eman, alkar-izketa ta ibilli geyago bear genukela, bizimoduak eta izkuntza eta abar obeki ezagutu ta maitatzeko alkar. Gauza jakiña da, urruti dagona ta gutxi ikusten dana, gutxi maitatzen dala. Ipar aldeko euskaldunak, zenbat dira Bilbo'tik Irun'era bitartean? Zenbat neska-mutil alkartzen eta alkarren izkuntza entzunaz ezagutzen eta maitatzen? Ango euskaldun gazteak zenbat dira emengo euskaldun gazteekin ezkonduta? Bitartean, emengo neska-mutillak erdeldunekin, zenbat daude ezkonduta? Asko gaude batuta ez inkuntzaz bakarrik, baita odolean ere. Ta orain, dena bukatzeko, euskerantoz eta h'z nai batu, ipar-aldeko anaiak h'kin nai ditugu batu. Egundo iritxi edo lortuko ez dana.

Elitzake obea izango, onenbeste millaka erbestetar onera datorrela, anai gazte ayek ekarri, lana billatu eta Bilbo'tik Irun'era bitartean jarri, emen ezkondu ta euren aidekoak gero ekarri, ta orrela, angoak eta emengoak alkartuko giñake, batuko giñake obeki, ta alkar ezagutu ta maite.

Onetan obeto jokatu dute naparrak, ango euskaldun asko sartu da Gipuzkoa'n; millakak dira onera lanera etorri ta emen ezkondu diranak, baita kristau onak eta euskalzaleak, eta ori oso ondo etorri da guretzat. Ori bera egin dezagun andik-aldeko euskaldunekin eta orrela batasun aundiagoa izango degu.

Entzun izan det, andiko gaztedia, geyena, Paris aldera ta Ipar-ameriketara doala ta onera ez dula nai izaten. Ori egia ba'litz, ez jakiñak ere egiten du. Emengoak ere garai batez, denak Ameriketara, gaur ere batzuk, baiñan ez len aiña; ta ezta bear ere. An ere txakurrak ankutsik eta zaunkaz.

SOIÑU-ZALE

Martín Aldanabal
TENDERIA, 3

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

BAI EMAKUME TA BAI

GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ZAZPI-KALEAK — CASCO VIEJO

ERRIETAKO BERRIAK

Boise

Orain dirala zortzi illabete, Boise'n eratu zan Euskalzaleen batzar bat, eta emengo Euskaldunak beti dagoz aurreratuta euren nortasunaren barriak ikasteko.

Aurten, erriko ikastetxe nagusian (Boise State College) euskerazko izkuntzearen ikaskayak barriro eskeintzen asi gara. Lengo taldean bezela, emengo irakasleak Jose Egiguren eta Miren Rementeria dira.

Uste dogu, udaberrian gertatuko dirala emen beste irakaspen batzuek. Oneik euskal kultura ta istoriaren aldetik izango dira.

Oiñ parkatu mezedez, baiña agur esan dear dautsuet irakurle danori... emengo aldean lan asko dago egiteko. Gero arte...

REMENTERIA'TAR MIREN EDURNE

Zeanuri

BASERRIKO BARRIAK

Eulojio, Eleizondo'koarenean beiak iru txal agin ditu. Baserritarrak poztu egin gara; gure beiak orrelan egiten ba'dabe aberastuko garalako. Ez daitezala ba baserriak utsitu!

Aurtego uda aldia euritsua izan dogu. Bedarra ugari eta arto, indaba ta ortuariak onak dagoz. Orain uda-azken on bateri itxoiten gagoz, ta orrelan izango dala uste dogu.

Ez naiz eguraldi igarle aundia, baiña Upo'ko artzaiñak euritzua izango dala iragarri ba'dau bere, ez dautsola igarriko nik uste.

ERRITARRAK

Iruña'tik etorrita bere oporraldiak igaroten, emen izan dogu Dionisia Intxaurraga gure auzotar eta lagun ona. AGUR'eko arpidedun baita mendi zalea be. Nori ez yakoz atsegin gure mendi tontorrak? Niri be bai.

Ori dala-ta, urtero Gorbei'ra ibillaldi bat egiten dogu. An izan giñan gazte ta ez ain gazteak gareanok, baiña danok pozik geure itunak aiztuta, aurrera, Kurutz'eraiño yoateko gogoz.

Baiña laiño andia zan eta euri zaparrada ederra bere egin eban eta Igiñao'raiño baiño ezin izan giñan yoan izan. Eskerrak Basilio'renean abegi onagaz artu ginduezela. Barriketa aldi bat egin gendun an egozan lemonatar butzukin, baita Juantxo artzaiñakin, J. Mari AGUR'eko barri-emoillearen anaiakin.

Gure abestiak entzun gurarik Enrike, baiña denporea laiñotsu ta gure eztarriak legortsu, urrengoan izan bearko; agur egin eta urrengo urterarte, Jaunak lagun, esanik, yatsi giñan etxera.

GORBEITARRA

Zestua

Joan zan asteko aginduari jarraituaz; «San Anton» abes-batzak, Zestua'n Urrillaren 8'an eguardiko amabietan, eleiznagusia berritzea dala-ta, elizan bertan, abestuko du.

Abes-batz au, ia eun lagunek osatzen dute. Emen gure errian ez dugu ezaguna, baiña ezagutzeko aukera izango dugu. Itxurazko abes-batz bat lortzeko, neke ta izerdi aunitz ixuri bear. Bizkaitar abeslari jator auek, auxen eginda eldu dira, eldu diran tokira: gaur ziur-aski euskalerrian, onenetakoak izango ditugu.

Joan zan larunbatean gure erretore On Anjel'egaz mintzatu, eta eleiza ikusiaz, Zarraga ta Xabin jaun abeslariak, Zestu'ra etorrita emen, izan genituan. Mintzatu ondoren, datorren illaren (urrilla) 8'an abesteko erabakia artu zuten. Diruaren alderdiari exertxo begiratu gabe; bakarrik, eliza berritzearen xedeaz.

Eztago esan bearrik, bizkaitar auen, joka-bidea, benetan atsegin izan zaigula; gure eliza denok maite dugu, eta beraz eskerrak emen bearrean gerala, nai erretorre jaunari ta «San Anton» abesbatzari.

Eta gure esker-ona nola agertu? Abesti ederrak entzunaz, eliza zearo bete: benetako Zestua'rrak gerala onelaxe azalduko dugu ta.

JOSEBA

Arratia

ARRATI'KO bideziorretan aurrera jo baiño len, ikusi ta aztertu zenbat euskal-itz bastertuak izan diran, erdereari ONGI-ETORRI! esateko. Aspaldiz txokoratu izan neban aldizkari betetik jaso izan dodaz-eta, erruki gaitezan Txanotxo-Gorri'ren amon, amamari jazorikoa jazo baiño len:

«Abustuaren 19*an eguraldia* sano freskatu *da... (L biko errian)*. Espektadore sufrituak ezenarioan, kolorezko *argiak, jesarleku guztiak* okupaturik, frontoia jendez toperaiño *eta bi* metro alturako *gizona guztia* dominatzen. *Ondo* entrenaturiko *neskek eta mutilek* arropa *barrietan* ezenarioan seriotasunez, esibionismo aiderik *gabe* mugitzeak komentzitu *ginduezan*. Kanta *asko*, boz *utsez* fintasuna *eta* lirismos. *Gero*, soldatu *bat* posible *ez dan* personalismo *baten* profeta, bekatu orijinalaren kausaz kantatu *zuan: Itxaropena* posible *bilakatzen da, maitasuna ez da* absurdo *gelditzen.*—Kanta pegagarriak publikoaren erreakzioa *izan ziran*».

ARTEAGA arakatzera noa orain, eta ementxe bai, edo iñongo iñon ez, bizigurea ta ilteko nairik-eza.

Gaixoen sendatzea auzo-erriko osagillearen esku dago. Il-zorian dagonak berak egin bear zuloa, edo bizi-izaten jarraitu bear, zulogiñik ez daukeelako. Lenago iru apaiz, orain bat, auzo-errikoa. Erriko zabaldian, enparantzean edo plazan soiñutoki politpolita, baiña... gaztediak auzora anka. Agintari gorengoa andrazkoa, baita erri-morroi, aguazilla bera be, gonaduna.

Gizona beti izaten da begi-luze emakumeren bat inguramari izaten danean, emen jazoten dana ostera, oso bestera da: emakume eder bi erria zuzentzen... eta gaztedia jaietan aldameneko errietara jolastuten. Korapillo gogorren bat dau erriak.

GUZTIENTZAT eskubide bardiñak agertuten ez dauzan eleizari begirakada bat egin eta Ugarte'raiño eldu besterik ez, amaren ondoan tomate batzean diardun neskatil eder-eder batek, agurka besoa gora-goratu, ta diñost: «Idazlan sakonagoak, gogorragoak eta berdeagoak gura doguz!»

Ederto esan don, neska, esatekorik ezer izan ba'don; gogorrak eta berdeak eskatu eta tomaterik elduenak eta bigunenak altzoratu. Urrengo baten aituko gozan.

LANDAJUELA'TAR A.

Ondarru

Neure illoba Aulestia'tar Koldo ta bere emazte Enkarnetxu'ri Guadalupe'n ezkondu ziranian abestutakoak:

1
Une onetan zuek alkarri
eman diozute itza,
biok maitatuko zeratela
Kristo'k bezela Eliza.
Amets gozo bat izan dedilla
artzen dezuten bizitza;
Jauna'gandikan dezazutela
azken gabeko laguntza.

2
Guadalupe'ko Ama zuretzat
nire gaurko abestiak:
mantupe baten artu itzatzu
ezkondu diran gazteak,
Pake santuan eman ditzaten
ludi ontako pausuak
ta urte askoan izan ditezen
egiazko gurasoak.

3
Eliza ontan itza emanik
bat eginda bizitzeko,
gaurtik aurrera saia zaitezte
alkar errespetatzeko.
Jaungoikoa'ren lege santurik
ez dezute ukatuko,
Berak eskatzen duan bezela
beti garbi izateko.

4
Zeru txikia dirudiala
baselizatxo onetan,
Ama gozoa maite maiterik
daukazute biotzetan.
Gogoan izan bear dezute,
ekaitz aldi ta pozetan,
bide oberik ezin liteke
arkitu emen lurrean.

5
Pozez beterik egin nai nuke,
nik biotzetik agurra:
Lendabiziko izan zazute
Jesus onaren bildurra;
gero; gogotik beti maitatu
zuek jaiotako lurra,
eta alkarri azpertu gabe
irripar gozo samurra.

URIBE'TAR LIBURIO

Ixurtza

Arbixola'ko Irastortza ta Etxeandia' tar Erramone andereiñoa il jaku. Alkatea, burdiñolako zuzendaria ta euskaltzale aundia izan zan Adrian jaunaren alabea. Andra ikasia, eleizkorra, ixilla ta apala izan da Erramone. Umeai irakasle be egin dau bere etxean. Euskerazko oroigarri ederra egin dautso bere sendiak. G. B.

Bekoerrota'ko Markos'ek be egin dausku agur. Ixurtzar jatorra izan jaku berau. Gizon egokia. Biergin zintzoa. Zenbat bider egin dogun berba beragaz euskeraz. Ez jaku aztuko Markos'en irribarre atsegiña. Azkenengo urteok arte joaten izan da eleizara. Ixurtzar jator-jator bat joan jaku benetan. G. B.

Migeltxu'eneko Marikurutz be joan jaku. Uste gabean. Zornotza-Etxano'ko alabea Migeltxu'eneko Nikax'egaz ezkondu jakun. Ez dabee seme-alabarik izan. Andra baketsua, etxezalea ta borondate onekoa izan da. Auzoan asko maite izan dogu bera. G. B.

ARRIBI

Bermeo

Erriko jaiak amaitu ondoren idazlan txiki bat egiten asten naz. Lenengoz esan bear dot jai aurrean joan zala gure artetik gaixo txar baten erruz, Julian Artetxebarria (txato); AGUR'eko arpidedun eta gaztetan pelotaria ta abertzale zintzoa. Kalamu'n, Elgeta'n, Sollube'n parte artu zun bere erriaren aldeko eginkizunetan. Betiko agur bat Julian.

Aurtengo jaiari buruz zer esan gutxi dago. Alaitasunik ez gendun izan gugaz eta zoritxarreko Lekeitio'ko eriotzakaitik, lenengo egunean Meza bat euki gendun eta ondoren ixil unada bat. Gaztediak oso ondo erantzun zun. Arraintzale egunean ere oso itzal zegon erria.

Irugarren eguna bardin. Jai arteko egunetan euki genduzan AKELARRE antzerki taldea eta ARGIA dantza taldea goiko enparantzan gabaz. Talde biak ondo betetu zituen euren eginkizunak, batez ere dantzariak eskiñi ziogun gure errian ikusi gabeko dantzak. Oso txalotuak izan dira. Frontoian, arri-jasotzailleak Endañeta ta Aretxa, eta gazteen neurketan, Erauzkin bermeotarra garaille.

Gero alde batetik, onek, indartsu guztiok ipiñita eta beste aldetik bermeotarrak sokatira bat egin zan eta gure errikoak garaille. Pozgarria zan ikustea gure errian ba daukaguzala gizon indartsuak.

Eupemi Deunaren egunean, urtero lez, estropadak, antxiñatik jarraitzen dogun oitura zar bat daukagu emen. Lenengo lotu zan Santurtzi, bigarren Plentzi eta irugarren Ondarrabi. Kanpotik jente gutxi etorri da ikusten, errudun? oba ixildu.

Jaiak amaitzeko Galdakano'ko Andra Mari taldea egon zan, dantzan oso ezagunak Bermio'n, txaloak ugari, eta emen amaitu dira aurtengo jaiak; datorren urterarte.

Idazlantxo au egiten nagola ba goaz Canarias alderuntz. Bizkai'ko egala ikustean gure asmoa ez da besterik gure erria ta gure erritarrak agurtu. Gabonetararte!

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Galdakano

JAYAK DIRALA-TA

Lerro oneik idatzi doguzanako, ia amaituta aurkitzen dira gure erriko jai nagusiak. Azkenengo ondakin batzuk bakarrik dagoz ospatuteko, erritarrontzat ezetariko garrantzirik bakoak. Errizaleontzat garrantzi pizkat izan eben jayak, bear zan bestekoak izan ez ba'ziran be, igandean, Iraillaren 24'gnean ospatu ziran, eta ospatu bear ziran eusko giroko dantza, kirol eta errijakintzako jai bikaiñak izan ziran. Gazte askok baiña, uko egin eutsoen, eurok, gazteok antolatuak izan bear ziralako aurreko urteetan legez, eta ez ori egin dabenak aurten, igaro ziranak galerazo ebezan eurak.

Egia da, orretara izan da, baiña baita egia da, beste erdel jayak be batzorde orrek berak antolatuak izan dirala, jakiña, ta orreitan «bapo» gau ta egun, ijiji ta ajaja, enparantzean eta ardangeletan, guztiok beteta, ederto jolastu dirala gazte orreik, aldi garratz onetan bear genduken begirunea aaztuta.

Lenago be sarritan esanak gara:beti izango litzakela egokiago gaztediak berak antolatzea erriko jayak, zaarrago batzuen babespean. Gazteak diralako geyen baten, jolastuko diranak, ta berez, ondoen dakitelako zeintzuk diran jai eta jolas atsegiñenak, ainbat geyago euskal-jayak diranean. Jai oneik, benetako erri-zaletasuna dabenak gertuak izan bear dabe, erriak atsegiñen izango dituzanak aukeratzeko, ta ez atzerritarren ederketariz bakarrik dabizenak.

Onerako danean, nork egin daben edo nork ekarri daben begiratu barik, txalotu egin bear da, ta ez beste barik ezeztu, uko egin jai politak diranean. Gaiñera, ziur dakigu, aurreko urteetan euskal-jaia gertutzen ibilli zan batzordeko bat ez besterik zuzendu zala agintariegana, orrein jokabidea jakiteko, ta egokia izango zan. Nagikeria ala bildurragaitik? Danetik pizka bat.

Oneik izan ziran izan genduzan euskaljaiak: Goizeko bederatziretan, txistulari mordo baten biribilketa erriko txaiderik andienak zear. Amar ta erdietan enparantzean, dantza askatuen leyaketea: bederatzi bikote aurkeztu ziran, Bizkai'ko onenak bear ba'da. Lenengo saria Ondarru'ko Etxaburu-Bilbao senaremazteak irabazi eben,Ugartetxe-Artetxe gaztetxuekaz burruka garbi ta gogorra egin ondoren, beste orreik bigarren geratzeko. 3'gn Miren-Josu, gazteak oneik be. 4'gn Garziabeitia lengusu-lengusiñak, eta abar; guztiok batak besteak baiño obeto.

Ondoren, erriko Andra-Mari dantza talde ospetsuak euren dantzaketa kementsu ta bikaiñak eskiñi euskuezan; bardingabeak, iñoiz baiño obeto dantzatuaz, ain maite daben euren Erriaren aurrean. Andra-Mari'k amaituaz batera, arri-jasotzailleak asi ziran: Aretxa, I eta II, Endañeta, Yurrebaso ta abar, jarraian aizkolariak, eta barriz arri-jasotzailleak, danak gogor eta ederto. Oso txalotuak izan ziran euren indarketa ta trebetasunakaitik. Kirolok amaitua, txistulari mordoaren ereskintza, zetan esan bez, guztiz ederto. Arratsaldean soka-tira ta ondoren dantzaketa askatua gabeko amaikak arte, naita guk ikusi ez gabekorik.

ERIOTZAK

Iraillaren erdian, Tximelarre'ko auzunean, Alberdi'tar Joseba Mirena, langille zintzoa izandakoa, irurogei ta emeretzi urtedun zala il zan. Baita Irail orren 26'gnean, eta auzune ortan bertan, Barrenetxea'tar Amadeo, gizon oso ezaguna bera. Goyan Begoz adizkideok!

BASA-JAUN

ERMU'TIK PETRALANDA'RA

IJIJI! AKER-DANTZARA

Egunotan, ia batera, eldu jataz eskuetara euskerazko aldizkari bi. Batak, AGUR onexek, Monako'n izan dan euskal-illeta baten barri ekarren. Euskaldun bat il da an, Bizkarguenaga aita praillea. Praille onen eriotzak ez ei dau min eta atsekabe txikia sortu. Monako aldean negarrik izan ei da. Dima'ko seme ori ain ei zan ongillea, monakotarrai ta beste kanpotar askori laguntzen eta mesede egiten ainbeste neke ta lan erabillia, bekoki askotik odei illun asko uxatzen zituan irribarre gozatsuaz ain ezaguna. Ango iguruko eguneroko papelen batek be alan autortu ei dau. Kanpotar urriñeko bati olango autormena egiteko, praille orrek norbait edo zerbait izan bear. Praille ta gizon lez, eta gizon euskaldun lez, ezagutua ta aintzat artua zan, dirudianez.

Baiña orra or non datorren beste aldizkari ori. (Bakezko izena daukan arren, ez dogu oraingoan aitatuko, bere izen txarragorako izan ez daiten). Orra or non datorren praille il orren inguruan, zer esango dot nik?: aker-dantza antzeko bat egiten. Ez bedi iñor arritu. Oraintsu esan dau bertsolari batek:

> Euskalerriko baratzan,
> zazpi aker dantzan.

Zazpiotakoa da, antza, Dima dala-ta, zarraparratxoa atara gura izan dauana. Dima'ko Irukoiztar batek —Algorta'n prailletxea daukenetako batek— liburua argitaratu ei dau, bere erriko praille, abade ta mojen barri emonez. Ori dala-ta, gure dantzari onek ez dautso parkatuten iñori: ez Bilbo'ko Gotzaiñari —liburu ori ontzat artu daualako— ez Dima'ko praille, abade ta mojai —ez beste iñongori. Koipekeririk ez eskatu gure aker-dantzari oni.

Liburu baten barri emoteko, bai modu ona ta gizabidezkoa berorrena! Egia esateko, eginda gagoz modu orretako eretxiak irakurten, liburu barriren bat iragarten dabenean, aldizkari orretan; baiña, oraingoan, lengo markak zapaldu ez ete dabezan nago. Berba gitxiagotan, txandalkeri ta lotsabakokeri geiago ezin edo nekez sartu leiz.

Lenengo lenengo, egilleari kontuak eskatzen asten jako, ia zergaitik ez dauan argitu zerk eraginda sortu zan Dima'n, gizaldi onen asieran, praille-mojatako edo abadetako joerea, ainbeste umek bide ori artzea, edo orduko «giro sozio-ekonomikoa». Ez dau ikusi be egin, Aita Olabarri'k —au ei da egillea— ez dauala euki ain urrin eta atzera joateko asmorik. Orain bizi diran praille-abade ta mojakaz diardu. Eta oneik ez dira, ain zuzen be, gizaldi onen asieran «pillaka joanak». Eta gure aker-dantza atara dauan onek nondik daki orduko «giroa», orduko ainbeste ume «pillaka» joate ori? Nondik daki onek noz izan dan Dima'n —ez beste iñon— olango jokerarik andiena, orduan, ala lenago, ala geroago?

«Eztakigu zergaitik ixiltzen dauan...» Zentzunezko asierea, bera be ixillik gelditzeko izan ba'litz; baiña ba-dakigu: auntzak —akerrak zetan esan be ez— mendirako jokerea artzen dauanean, zoazte ari atzera eragiten. Gure dantzaria, bai, zera ixildu!

Jakin ez, baiña bereak eta itzalak esan bear. Dima'ko ume areik ez ei eben pillaka euren bidea artu «fede utsez». Gauza andien bat esan dauala-ta dago, baiña ortxe be ez daki zer diñoan. Izan be, fede utsak eraginda ez da iñor abade ez praille egiten. Fedeaz gaiñera beste zerbait bear dala edozeiñek daki. Bestela fededun guztiak artu bearko leukie bide bardiña. Gure ez-jakin jakitun onentzat, Dima'ko umeak, areixek bear eben fede utsa orretarako, gizaldi onen asierakoak beintzat. Ez-jakiñak zenbat txaldankeri erasoten dauazan!

Eta egingo ete dautsagu berari itaunetxo bat? «Txotxo jakitun, beste erri batzuetan zer jazo zan ba-dakizu? ez ete egoan iñon «giro sozio-ekonomiko» bardiñik, orduan edo zana zanean? Zergaitik ez eban, ba, frutu bardiñik, joera aren antzekorik emon?

Ez da errez asmatzekoa, zetatik dauan gure ermutar orrek Dima'koentzat ain latz eta garratz agertu bear ori. Or ikusten da baztarren baten idatzita: «Ermua, la villa cordial». Aker-dantzagille onek, esango neuke nik, ez dautsala bere uriari asko lagundu nai izan izen orri eusten. Ez ete dabil besteren baten agotik, besteren batek eraginda? Aita Olabarri'ren liburua irakurteko astirik be artu ete dau, baiña? Nik ez dot uste. Besteren bat dabil or bitarteko.

An Dima'n, ba-da Petralanda ingurutik ibilten dan kanpotar bat, ermutarragaz batera dantzan egiteko aukerakoa. Ipuiñak diñoenez, Petralanda'n sorgin-batzarrak egiten ei ziran, akerra buru ebela. Ermua ta Petralanda bitartean dabil antza, oingo aker-dantza au. Bata bestearen soiñuan dabil dantzan. Laguna artuta obeto dator dantzea.

> Ijiji eta ajaja!
> Goazen, lagunak, dantzara.
> Ajaja eta ujuju!
> Aker-dantzari gara gu.

Baiña, ixo, entzun dantzaldi orretan zer diñoen. Orain datorrena ez da lengoa baiño akerkeri txikiagoa. Zer, ba? Dima'ko praille-abade ta mojok ez ei dabe «giza-baloren alde» ezer egin; eta, euskal-baloreentzat, gitxiago. Ori da anaitasunez berba egitea, gauzak artez esatea!

Zertzuk ete dira, baiña, ermutar onentzat «giza-baloreak»? Sozio-ekonomiaz gaiñeko balorerik ez ete dau onartzen? Edo ta, zinean edo moda-aldizkarietan agertzen diran emakumeak ete dira bakarrik beronentzat aintzagarri? Alan be, nik amaren semetzat daukat. Eta ez ete dau aregan giza-balorerik ikusi? Eta ama-lanetan, ixillean, dabiltzan mojatxo askok, dimatarrak izan arren, ez ete dabe ezer egin gizonen alde, munduaren alde? «Sufritu ta sufritu besterik» ez dabela egiten, masokista ganorabako eginda?

Emen be erakusten dau gure aker-dantzariak Olabarri'ren liburua ez dauala irakurri. «Sufritu ta sufritu» kontu ori ez dau an aurkitu. Bein biotzak buru galdu ezkero, zer ez dautso erasoko? *Villa Cordial*'eko onen amarentzat olango erdirik iñok esan ba'leu...

Aita Olabarri'k erantzuntxo bat emonda dauko bere liburuan olango akerkeriai, irakurri nai dabenetzat. Bestela, zergaitik dauko Dima'ko seme batek, Ameriketara joan zan mixiolari batek, ango uri baten, plazarik andienean monumentu bat, oroitarri bat, kanpotarra izan arren? Eta zergaitik izan ditu gure egunotan, Dima'ko irukoiztar batek, Madagaskar'en gobernuak emonda, omenaldi andi bat eta ospezko kurutzea? Aita Arriortua'k sua botaten ei eban Madagaskar'en «giza-baloreen alde». Su ta gar ekin ei eutsan bein Dima'n bertan be, bere erritarren artean, «sozio-ekonomiaz» gaiñera, beste balioko gauza batzuk aldatzen ikusita. Aita Olabarri'ren liburuan dator Monako'n il dan Bizkarguenaga orren aitamena be. Eta zer diñoe Monako'ko negarrak?: Giza-balorerik ikusi dabela praille orren bizitzan! Eta zenbat olako, ixillekoak izan arren, edo guk jakin ezarren. Baiña ez-jakiteak ez dausku ukatuteko eskubiderik emoten, gitxiago zaunkaka edo txautxauka asteko, gure ermutarrak egiten dauan lez.

Eta euskal-baloreak? Euskal-baloreak kanpoan dira ezagunen. Nok zabalduta? Kanpora joan diran ainbat praille ta abadeak zabalduta, batez be. Dima'ko praille txotxolo orreik lez.

Ugarios'tik berago dago Dima'n Emaldi, auzo txikia; eta ango seme batek, bere bizirik geiena Ameriketan emon arren, ez ditu giza-baloreak ez euskal-baloreak ukatu. Mutilla da bera euskeraz idazten, eta «giza-balore eta euskal-balore» orrein alde dauko poema osoa euskeraz atarata, gure aker-dantzariaren, apatx-otsai jaramonik egin barik, gure txakurtxoaren txautxau guztiai ez entzun eginda. Eta ez daigun beste Dima'tik kanpokorik aitatu, ez Aita Yurre, ez Larrakoetxea'tarren izenik. Emen gelditzen diranak, dimatarrak, naiz Dima'tik kanpokoak, bataz beste, egiten ete dabe areik aiña?

Ba-diardue, bai, batek baiño geiagok, gure egunotan gure moja ta prailleen aurka, txau-txau utsean. (Txakurto izateko gauza ez danak, tototxoak lez, txau-txau baiño geiago ezin egin). Amaika lelo-soiñu entzuten da. Gure ermutarrak eta antzekoak ez dabe irakurri, antza, Patxo Zabaleta'k, aker dantzariarena asmau dabenak, diñotsena: ez dala naikoa, slogan batzuk edo lelo-soiñu batzuk ikasita, papaoen moduan botatzen ibiltea, arira etorri naiz etorri ez. Orrek ez dausku bururik jantziko, ez ezer ganoraz ikasten erakutsiko, ezta «sozio-ekonomian» azterketarik egiten be.

Edozein aizetara dabiltzanak, edozein berba edo lelo siñiskaitzat artzen dabenak, ezin izan gizon ez euskaldun ganorazko edo euskal-baloreen eusle. Berbarik andi ta ederrenakaz ezingo dabe euren barruko utsa estaldu. «Konprometituak, orreik? Noztik ona eta zertarako?» Atzo ala, gaur ola, biar nola? Nok artuko ditu benetan? Orra Anbre'neko semea, atzo, edozein dimatar ume kokolo lez, Eleizarako bidea artuta, Eleizeari emona; gaur, «sozio-ekonomia» obeko lagun bateri; biar, nori edo zeri? Nor da bera jesuitekaz ez dala fiatzen esateko? Nor, iñori konturik eskatzeko? Nortzuk ete dabiltz «alienatuago», besterenduago, iñorenduago, besteri buruak salduta?

Solozabal jaunaren itauna datorkit lumara: Itxartuko ete, esnatuko ete gara? Slogan utsak, lelo-soiñu utsak burua ustuten eta nortasuna kentzen dauskuen bitartean, ez. Olan ez erriari aurrekadarik eragingo, ez giza-balorerik emongo. Aker-dantzaren bat, bai, atarako dogu ortik, baiña gauza andiagorik, ez. Ez dogu ez Madagaskar'en iñoren omenaldirik lortuko, es Arequipa'n monumento andirik irabazi, ez Monako'n iñori maitasunezko negarrik eragin. Gure ermutarra bere senetik atara daben praille edo abadeen batzuk egin daben lez. Zergaitik? Gizon, «giza-baloreen» zabaltzaille ta euskaldun jator izan diralako, aurki.

Guk, geure etxean, beste ainbeste gitxienez egiten ez ba'dogu, ez areri errurik bota. Geurea da errua.

UGARIOS'KO TXORIA

BARRIZTU

Ainbat bidar entzuniko itza dogu au azkenengo aldi ontan. Barriztu bearra berezko zeregiña da. Barriztu ezik, eriotzea, berez dator. Gure inguruan dabiltzezan indarrak, batzuk gure bizigarri dira, beste batzuk gure etsai. Sasoiz eta negurriz datorren euria mesedegarri da lurrarentzat, uriolak ostera kaltegarri doguz. Eguzkia bear dogu, bera bage ezin bizi gara, baiña, arek be, euri barik lar luzetzen danean, lurrak erre ta koko izurriaren arriskoa dauka.

Mesedegarri doguzan gai guztiak artu ta eurekaz baliatu bear gara ta kaltegarri jakuzan indarrak gure inguruan agertzen diranean, geu ondatu ez gagiezan, negurriak artu bear doguz. Gure bizia zaintzeko bidea dogu, era onetan jokatzea: Kaltegarri jakuzan etsaietatik burua zaindu.

Au ete da barriztutea? Ez. Esandako au bearrezkoa da bizitzaren oiñarri bezela, ta ondoren, aurrera ta aurrera, egin bear dogu. Beste kezka bat dabilkit azpaldian zirika neure barruan. Neuk sortua ez da. Beraz ez naz sorle. Ikusi ta entzuten diran esate orretatik datorkit burura. Orain arte, Jainkoa ontzat artuta ibilli dira euskal idazleak. Gaur ostera, aiztoa artuta, itz ori ebagi-ebagi egingo leukee.

Egia esan nai ba'dogu, Jainko itza edo orren esan-naia munduan, alderdi guztietan ta menderen mendez, beti, askok eta askok onartu izan dabe. Neuk nai dodalako edo nai ez dodalako be ez da, bakarrik, ori onartzea. Egilleak egiñok, deia artzen dogu ta indar ori argiz ta maitasunez beterik bezela dago. Aitatasuna ta semetasuna agertzen dira or. Munduan be semeak aitari aitatasuna itzez ukatu arren, aragi, azur ta odol indarrez ezin ukatu. Ta dei ori ezin iñoz il.

Munduan milloi askok eta askok Jainko ta gure arteko artu-emona aita-semeen arteko egitzat artzen daben ezkero, pentsabie ori berezkoa ta Kristo martiriak eta berbiztuak irakatsia danez, il eziña da. Berez, alderdi orretatik euskal izatea ta gure izkuntzea barriztu bear doguzenik ez deritxat. Mitoa edo zer ete dan au, ezin dot ikusi...

Alan be, barritu ta indartu egin bear dogu euskera izkuntzea. Ta au zelan egingo dogun, bizitzeak berak esan bear dausku. Batzuen arteko pentsabideak, usteak eta nai izateak ez dira naiko. Sei-zazpi alkartu, batak besteari txaloak jo ta jainkotzat artu bat edo beste ta lurrunetan ibiltea ez da aski. Errira eldu bear da, ta atan bere, euskal izatea indartsu ta osoen dauken jende artera. Euskal-erria, non dagon, aretxek esan bear dausku.

Munduak alde aundiak izan ditu bere bizitza giroan, eta beti, aurrerantz egiten doa. Artzain-aroa, lugintza-aroa, industri-aroa ta atomika sasoia, oso aldakuntza aundiko bizitza atalak dira.

Artzaintzak damoskun izkuntza zeia da. Baiña bildotsak, gaur be, bizigarri jakuzanez gure gorputzaren osasunerako, aldi ta giro orretako izkuntzak, bere bizia ta indarra daroaz. Bildotsen sortzeak eta ardurak bizi-biziak dira. Ta zelaiak eta bedarrak kok-eragingo eutsen artzaiñei.

Gero ondoren, basarri-lugintza etorri zanean, gizonen jakituri argi ta eskuaren indarra, geiago bear ziran. Bizitzaren gora-berak goragoko mailara sartu. Ona eldukeran, izkuntza barriztu egin bear zan ta bizitzea bigarren mailla ontan goragoko ta indartsuago zanez, izkuntzaren indarra be, bardin, goratu ta indartu zan.

Geroago industri aldia eldu zan. Onek bizitzari emon bear eutsan dardarea tximist indarragaz batean, ikaragarria zan. Emen izkuntzeak astiñaldi barria artzen dau. Bizia barria, aberatsagoa ta bizi-maillaz goragokoa. Izkuntzak arazo barriekaz pentsabide sakonagoa ta jakintsuagoen eramaille biurtzen dira. Barriztute ta aurreratze ederragoaz jaubetzen doaz.

Ta gero, azkenengoz, atomika garaia eldu jakun, erriak eta arriak auts biurtzen ditualarik. Ori zer da, aurreratzea ala atzeratzea? Guzti ori egi ta zuzentasunaren ta maitasunaren bidez zuzenduta egon bear. Ta ain zuzen be, ementxe, azkenengo itz onetan dago Jaungoikoa.

Bizitzako arazoei, emengo aurrerapideekaz eta egiz, zuzenez ta maitasunez erantzun daioegun, ta era orretan, gure izkuntzea aurrera, barri-barri, eroan al-izango dogu.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

PHILIP POTTER

Ba-da munduan alkartasun ospetsu ta indartsu bat, Eleiz-Oroen-Batzarra izenez C. OE. E. itz motzakin ezagutua, ta Suiza'ko Ginebra erri-buruan bere batzokia duna. Batzar ortan 400 milloi kristau daude alkartuta. Geienak protestanteak, anglikanoak eta siñiste-ziñakoak (ortodoxoak). Katiloko-eleizak ez du or artu-emanik. Ala ere, Aita Santua an izan zala ba-dira urte batzuk.

Eta, zergatik ez gaude gu batzar ortan sartuta? Egia esateko, ba-ditu Eliza-katolikoak ordezkari batzuk so-egille bezela. Baiña gu barruan ez. Zer ba? Gu katolikoak 500 milloi omen gera. Orrela izanik, ez geunke indar geiegi izango? Ta orrela besteak bildurtuta izatea. Batikano aldetik ba-dago baita zalantza ta izua. Igalia ez omen dago oraindik umatua. Beraz, garaia etorri arte itxoin bear.

Dana dala, Eleiz-Oroen-Batzar orrek, aurten, Dagonillaren 13'tik 23'ra izan du bere biltzar nagusia. Ludi guztitik 120 ordezkari batu dira, Olanda'ko Utrecht uri aundian. Enda danetakoak ziran, beltzak, zuriak, oriak ta abar. Batzar-araudieri jarraituz, lendakari berria aukeratu zutela, ta nor autua izan? Philip Potter, beltza bera.

Azkeneko bi lendakariak oso izen aundikoak izan dira, jakintsuak, zurrak eta zuzenak. Kristau batasuna elburu xede artuz, langille porrokatuak.

Philip Potter, lendakari berria, Domeka Deun ugartean jaiao degu. Aita katolikoa, ama protestantea izan zitun. Metodista taldeko kristaua, sail ortan bataiatua izan bai-zan. Mundu zear asko ibillia ta izkuntza askoko jabe dana. Idazteun yakintzan oso ikasia. Ondo ezagutzen ditu kristau moltso guzietakoen arazoak.

Utrecht'eko batzarrean diran ordezkari geienak, irugarren munduko, erri atzeratuenekoa lendakari bezela autu bear zala, bat zetozen. Erri txiro oietan kristauak ugaritzen dijoaz, ta beren arteko batek, askoz obeto ezagutuko ditula aien arazo ta buru-austeak ta, ara, beltza aukeratu. Beltza bakarrik ez, Philip Potter sendi-yoputzar semea degu. Beraz, estutasun eta premi aldiak ondo ezagunak izango ditu.

Kristau guzien batasunaren alde lan egiteko, oso gertua omen dago. Batez ere irugarren mundu oietan. Ondo garbi esan du orain dala gutxi:

«*Irugarren munduko kristau sakabanatze ori ez da gure errietakoa; ez dago gure edestian sartuta. Europa'tik ekarria degu. Europa'ko eziketa ta yakintzak sortutako burrukak dira eta guri ajola gutxi*».

Iritzi ortakoak ditugu ere erri oietako gotzai katoliko asko.

Ez al degu au izango, kristau batasuna ikusiko duan Eleiz-Oroen-Batzarreko lendakari zoriontsua?

OLABEAGA'TAR IÑAKI

AGVR

III URTEA
58 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - URRILLA - 21

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

†

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Zestua'n, Urrill onen 12'gnean il da (G. B.).

Zenbaki au irarkolan dala gertatu da ez-bear au, egun berean biali digun bere idazlana datorren zenbakian agertuko degu, edo ditugu, ez ba jakin zenbat bialtzen dizkigun. Joseba, laister arte!

Udagoiena

Udea igaro jaku, eta udagoienean sartu gara. Egia esan, udearen antz aundirik ez dau izan aldi orrek, baiña, izan dan lakoa, igaro da.

Eta udagoien onek aldakuntza batzuk ekarri ditu gure bizitzara: ikasleak euren ikaste-etxeetera doaz oporraldiak amaituta, langilleak euren lantegietara biurtu dira, gure artean izan diran udazaleak euren lurraldeetara iges egin dauskue, egun luzeak, orain, geroago ta laburrago biurtzen jakuz...

Baiña gaur gai arin bat aztertu nai dogu: egurastia edo beste askok esango leuken lez, giroa, klimea.

Gure egurastia ona da. Aitor'en semeak onetan begi ona izan ebela esan bearrean aurkitzen gara. Kantauri'ko mendi-katearen ipar-aldean egurasti lar ezkoa daukagu, eta ipar-aldean lar legorra. Baiña, gorabera orreik konturatuarren be, gure giroa ludi guztian be onenetarikoa da.

Aspaldiko urtetan, esana egia izan arren be, aldakuntzea agertzen jaku gure egurastian: neguak bigundu, udak epeldu eta urte guztian euria ugaritu egin jakuzala dirudi. Lenagoko udetan ziran bero aldi gogaikarriak aspaldion ez dira agertzen, udarik geienak, aurtengoaren antzera, ozkirriak eta ezkoak izanten dira. Aspaldion ez dogu izan antxiñakoen lako edurtzarik eta teillatuetatik eskegita ikusten genduzan lako leikarraldorik ez da agiri.

* * *

Onelan dala aldakuntza au uste dogu, eta onetan aurkalari gitxi izango doguzalakoan gagoz, batez be aurtengo udara begiratu ezkero.

Zergaitik ete da aldakuntza ori?

Batzuk, lerrondoak, piñuak, ugaritu diralako dala diñoe. Eta izan leiteke. Gaztelako zelaidia zugatzez beterik egoanean euritsua zan, eta, gaur, zugatzik ez dagonenean, legor biurtu jake.

Lenago, piñurik ez ba'egoan be, ba' ziran pagadi ederrak, baiña gaur baiño ugariagoak ziran landak, lantzarrak eta soloak. Gaur Esukalerri guztia lerrondoz baltzitu jaku, baita itxusitu be. Gaur zugatz geiago daukagu.

Ba diñoe giroaren aldakuntza au atomo-bombak lertzen diralako dala be. Eta au baieztu edo ezeztutea gatxa da. Aundia da lerkai orren indarra, benetan.


* * *

Udagoieneko giroa, gure artean, ona izaten da. Sarritan udea baiño obea. Egunak laburragoak, gabak luzeagoak, baiña aize epela sarri, goizetan izan ezik. Eta euria be udan baiño geiago ez, azkenengo urteak begiratzen ba'doguz beintzat. Gero era guztietako igaliak ugari oindiño, mastiak euren igali gozoa eskintzen dauskue, batez be Errioxa alderantz edo Naparroarantz joaten ba'gara.

Iparraldetik etorten diran udazaleak euren mosu-margoa baltzitu nai izaten dabe, eta orretarako, gure lurraldea itzita, egoalderatz joten dabe. Baiña gu geureagaz pozik egon geintekez, osasuna dogun artean gitxienez. Eta gaizoen batzuk, esaterako birikietakoa, osatu gura doguzanean, mendikatea azpiratu ta beste alderantz joaten gara.

Udagoiena da ba. Janean eta lanean, geure Erria maitatuez eta bere alde jokatuez, pozik bizi gaitezan.

AGVR



Aurrekin aur, Xaarrekin xaar, Gazteekin gazte

Ez alperrik jardun, adizkideak, ez alperrik jardun zuen Gotzon or, gure artean, non ikusiko. Arek egiña bai dezue argazkia.

Guk gerok ere, ez genizuen itzaspertu aundirik egin berakin Kepa Deuna egun aretan. Neska-mutillek arrapa ziguten adizkidea. Onen irri-par gozoa umeen artean. Eraman ere, orretarakoxe eramanak guk Mañu'ra neska-mutillak: Apaiza ezagutu ta maita zezaten.

Sollube-gaillurrean, Intxorta, Udalaitz, Urkiola begi-aurrean, Don Nemesio'ren «Ene biotz gaixoa» burura. Burura ta ezpaiñetara. Ta barren-barrendik ekin genion, txiki ta aundi, abestiari. Gain aretan abesti egokiagorik zein? Ez «Gaztedi Berria», beintzat. Nor dun egillea ezin jakin aal izan bai dizuet, ezin emen jarri «Don Nemesio' rena» jarri dedan bezela.

Besteok «Ene biotz gaixoa» eta, abesten ari giñan bitartean, gure Apaiza Sollube gaiñeko andaluziar mendizaiakin izketan. Artaldearen arduraetan an ere. «Qué cantan los chicos?», mendizaiak galde. Ta Apaizak, «Coplas, coplas del País».

* * *

Igande ta jai egunetan, 11'etan Meza Nagusia Mañu'n. Laurden gutxietako elizatadian gure bi berebil aundiak Kepa Deuna egunean. Aizkatutako txori-mordoa bezain bizkor irten ziran aurrak berebilletatik. Donosti-Mañu bitartean, bidea luzea. Beso-aztalak astintzen utzi egin bear apur baten.

Joatekoak giñala ba-zekin Apaizak, alkarrekin eraendu genizuen ibillaldia, baiña ez zegon elizatadian gure zai. Amar minutu ta elizara. An arki genun gure Apaiza. Dozenerdi amama ta bi edo iru gizon xaarrekin, agurtza esaten ari zan Meza Nagusi aurrean. Orduntxe agertu zitzaidan aundi neri Mañu'ko Apaiza: Ogei ta amabi urteko gaurko *apaiz gazte, sutsua, bere artaldeko xaarrekin, xaar.*

* * *

Egunotan bi urte. Bazkaltzen ari nintzan eta, igotzeko urrutizkiñera, laugarrenetik oska. Eskubete lan gaur etxe guzietan, laugarreneko urrutizkin-zenbagarrena iñortxori emama ez nik eta... Taupa gogorra biotzak: Deitzaillea ez den edonor eta eman bear diñean berria... ene:

«Grosene'ko Joxe Antonio naiz. Gotzon il da».

Ozta-ozta ezagun ziñudan izenez, Joxe Antonio. Bermeotar beste gazte sutsu batekin ezkonberri ote ziñan. Zure beste berri aundirik ez nik. Gazteok Gotzon zeon-zeona jotzen zenutela, zure deiak erakutsi zidan. Zure deiak eta aren zerraldo bazterrean aozpez, abildua ikusi nun gazteak.

Gazte-sail galantak inguratu zenuten zuen Gotzon'en illotza etxean, bidean, elizan. Besteak beste, biotzondo ederra alako gaztedi jatorra ben-ben an ikustea. Zintzo jarraiko al zatzazkiote guziok ua, eragille, egun batean ekin ziozuten bideari.

Ta, eskarrik asko, Joxe Antonio, eskarrik asko, gazte, une aietan, Urdulitz'ko Zabale'n, Urdulitz'ko elizan, otoitz egin aal izana zuri zor bai dizu.

IRA'K

Euskaldunen jaungoikoa

«Euskaldunen Jainkoa hil behar dugu» idatzi eban norbaitek. Aokada onek makiña bat berezitzaille ta eztabaida sortu ditu. Ez dakit —edo obeto esateko, ba-dakit— zelako asmoz idatzi eban orren egilleak, baiña, or eta emen, ugari irakurri geinkez, orain, idazlan aren ondorengoak. Batzuk alde, beste batzuk aurka, eta «fariseo» larregi —batez be abadeen artean— aurka dagozelakoan, erdiipurdika agertu arren. alde!

Zelako Jainkoari buruz idatzi euskuen a? Zoritxarrez geiegi zabaldurik dagoan sasijainkoari buruz? Au da, diru-jainkoa, jainko zapaltzaillea, mito ala utskerizko jainkoari buruz? Ori orrela ba'litz, konforme gagoz... baiña «urrezko bigantxa» ori ez da bakarrik euskalduna. Olakoa Brasil'en, Bolibia'n, Iparamerika'n naiz Italia'n aurkitu geinke. Eta zergaitik ez, «lurrezko» jainkotxoak diran txinarrenak edo errusitarrenak?

Beste alde batetik, sarri irakurri dogu «eleiza latinoak alienatu gaitu». Ez noa guztiz ukatzera, mutillak, baiña zelan demotres «alienazio» ori geitu nai dozue gure izkuntzea bere «latiñizatuaz»?

Ez, jaunak! Gaur «hil nahi dan» jainkoa ez da «urrezko izaki ori» bakarrik, egiazko euskaldunen Jainkoa bera baiño. Erri osoaren eta, batez bere, kristau guztien arazoa izanik, Jainko gaurkotu ori billatzea, abadearena litzake danen gaiñetik. Baiña abadeak, gaur, ekaitz itzalaren olatu arteko gora-beeretan ikusten doguz, askotan nora-ezean antzera.

Beste batzuk, euskaldunen eta mundu guztiko erri xearen egizko Jainko billa dabiltzanak, adore larregirik barik, aurreratuak edo atzeratuak agertzeko bildurrez, konpleju negargarri batek azpikotuta. Eta, gure ustez, egia nun-nai ta noiz-nai zabaltzeko ordua eldu da, naizta egi ori mingorra edo minberea izan.

Bidean aurrera zintzo jo dabenen artean asko dago, bear ba'da... baiña siñesmena galduta dabiltzanak bere, bai. Eta ori baiño kaltegarriagoa oraindik, siñesmenik-eza estaltzeko, euren bizitza negargarria justifikatzeko, arrokeriz beterik, utsik eta laprastadarik aundienak «normaltzat» erakusten dabez. Jainkoari uko egin arren, «klerikalismo»aren ondasunekin baliatzen dira. Zertarako? Bardin, iru edo lauren artean andregairik aberatsena aukeratzeko, edo euren menpean daukezan gazte zintzoak ezerezera, galbidera eroateko. Abadeak, abadekiak eta abade izandakoak dira «euskaldunen Jainkoa hil nahi dutenak»; ez jainko paltzurik, ez; egiazko Jainko gizon egiña, Kristo berbera baiño. Eta ordez, zer? marxismoa, lenininsmoa edo maoismoa... aitagiñarrebaren diruak eskuratu arte beintzat! Gero...

Urte baten barruan, maite izan ditudan gazte bi il dira. Gurasoak bazkide ta adizkide maiteak izanik, semeak beste orrenbeste izan nebazan. Gazte zintzo bi oneik eriotz gogorra izan dabe, oso ezbardiña baiña. Jakin-egarri ta errizaletasuna ziran eurentzat bultzatzaille. Beti bat-izan ez arren, eriotz biak izan dira nitzat oiñaze ta zirkingarriak. Bien eleizkizun ederretan izan nintzan, eta eleizako nere inguruko betekadean siñesmena ikusi nuen nun-nai, euskaldunen egiazko Jainkoagan dogun siñesmen sendoa; ez jainko berezi batengan, erri guztien Jainkoa dan eta gizon egin zanagan baiño.

Ez neban, ez, ikusi, buru-agertzaille banakaren batzuk izan ezik, euskaldunen «Jainkoa hil nahi dutenetakorik». Atzean gordetzen diran «intelektual» eta «kultural» bultzatzailleak geroari begira dagoz; auzokoaren semealabak iltzea, tira!, baiña norberarenak? Bai zera!

Ez dagiguzan baiña, gauzak nastatu. Gure gaztediak eta gure abadeak, egiazko Jainkoari eutsi bear dautsoe; gizon egiñik edozein gazte siñesdunarengan irudia artzen dauan Jainkoari. Lurrunez baterik dagoan mundu onetan, burua galdu ez zenduen biotzeko adiskide gazte biok, otoitz or goitik, euskaldunen Jainko askatzaille il naian, zoratu ez gaitezan: lortu eziña izanik, Euskal-Erria'ren ondamendia litzake.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

SASKI—NASKI

Garatea'n idatziak sortutako eztabaida bukatu zala uste nun baiña 49'gn zenbakian Arenaza jaunak idatzia irakurri ondoren, zertxobat esan nai nuke, gai ontaz azkenekoa noski.

Asko poztu nau, Garatea mutil jatorra dala jakiteak. Bildur bai nintzan «beste oiek» beren atzaparrak «Agur»en ere sartu naiean ote zebiltzan! Alde ortatik lasai gelditu naiz ba.

«Zabala Arana'renagaz, bear ba'da, *txarto konparaturik*», dio Arenaza jaunak. Auxe da argi utzi nai nukena: «*txarto konparaturik*».

Len ta orain Garatea'ri, *batez ere*, auxe eskatzen nion: arren eta arren ez alderatzeko edo «konparatzeko» orain beren asmo txar guztiaz, euskera ta... abar *zapaldu* nai dutenen lana eta len (eta orain) beren bizia Euskera eta Erria'ren alde eman zutenena.

Barkatu bezait Arenaza jaunak, berak esandako zerbaitekin bat ez ba'nator. Eztet uste aldi artan, euskera «goi maillatik» bakarrik irakasten ari ziranik. «Goi maillako» gaietan bai noski; onek gauza bat erakusten digu, ontan ere lanean ari zirala; «goi maillako» gaietan alegia. Baiña ikastoletarako ta erri xearentzat ere idazten zuten.

Orduan ere, norbaitzuk gauzak aurreregi eraman nai ta euskera «jatortasun» gutxikin erabilli izatea ba-diteke, baiña pixka batzuek noski; eta abek ere, geienak beiñepein, asmo onez, nere irirziz.

Galdera bat orain. Garatea'k ulertu eziña —edo ulerkaitza beiñepein— zala ta eman zigun idatzi zatia ona: «Egutegiko deun oneik, ludijon (munduan esan bear al da?) zeu letz bixi ixanda, orain danokijan dagoz zoruntsu, ta betiko egon be...»

Euskera au EUSKALDUN batentzat, batez ere bizkaitar batentzat, euskeraz irakurtzen dakin batentzat, EGIZ, ulerkaitza dala al derizkiozu?

Onekin bukatzen det. Asarrerik gabe ordea! Polita litzake zerbaitean iritzi ezberdiñekoak gerala ta besterik gabe asarretzea! Eztabaidak, asmo zuzenez diranean, onurakorrak izan ditezkela derizkiot gaiñera. Ez al da ala?

* * *

Atzo gure txikiak, ikastolatik berri pozgarria ekarri zidaten. «GIZA-SOIÑA» izeneko idaztia bear dutela ikastolan. Orain argituko dizuet, berri au, zergaitik zaidan pozgarria.

Idazti ontaz idazteko asmoz nintzan; ikas-idaztiak —idazti jatorrak— bear bearrak ditugula, idazti au ez bai da ezaguna —nere ustez beiñepein—. Onexegatik ikusi det ba, poz-pozik, gure txikien ikastolan, Donosti'ko Orixe ikastolan, ezagutu ta autatu dutela.

Nere iritziz, oso egoki egiña da. Goikoetxea'tar Iñaki josulaguna dezute egillea, ta itzaurretik artuta zerbait idatziko dizuet emen:

«Euskal ikastolak, Jainkoari esker, asko ugaritu dira azken urteetan, baiña ikasliburuak ez ainbeste.

Emen dezun «Giza-soiña» utsune ori bete naiez dator. Beteko al du? *Ola balitz, beste liburu asko argitara emango nituke*».

Onetxek garrantzi aundia dula derizkiot: «beste liburu asko argitara emango nituke». Auxe noski bear bearra deguna: beste ikas-gaietarako ere idazti jatorrak. Lenengo onek irteerarik ez ba'du, besterik gabe gelditzeko arrixkua degu. Ea ba beste ikastola jatorretan ezagutu ta onartzen duten eta egilleak, agindu bezela, beste idazti asko egiten dizkigun.

Itzaurrean, aurrerago au dio: «Ikas-liburu au egitean, gure jokabidea au izan da: GIZA-SOIÑA liburu oneri euskal arnasa ematea, eta lortu degula uste det».

Nik ere orrelaxe uste det. Oso «gaurkoa» da gaiñera. Ezagutzak, ariketak, itz gurutzatu t. a. Itz batean oso egokia.

* * *

Nere azkeneko idazlana irakurri dezutenak, Andoain'go ikastolan gertatutakoa ba-dakizute. Zabaldu zuten orrian ziotenez Donosti'n, Arrasate'n eta Zumaia'n berdin gertatu zan. Donosti'n beiñepein ori gezurra zala, guztia alderantziz gertatu zala adierazi nun. Orduan, ez nekin Arrasate ta Zumaia'ko berririk; orain ba-dakit azkeneko ontan gertatutakoa, eta ona:

Zumaia'ko ikastolan, guraso geienen iritzien aurka, «euskerantoa», «oraingo eziketa» ta abar sartzen ari ziran. Azkenenean, ikastaro erdian, guraso askok beren aurrak ikastolatik ateraerazi arte.

Berriketan ari ez naizela jakin dezazuten, zeaztasun geiago ere emango dizkizuet. (Len Donosti'ko ikastola batean gertatua esan nunean, gezurretan ari nintzala esan bai zun norbaitek, oraingoan berdin gertatu ez dedin..) Ikastotalik ateratako aurrak 110, 60 gurasoenak. Gelditu ziranak 30 aur, 14 gurasoenak.

Abek guziak «esamesak» ez dira, zoritxarrez. Idazterakoan, nere elburua au litzake. Gauzak argi ta garbi utzita, oraindik ere «linboan» bizi diranak esnaerazi. Iritxiko ote degu au? Jainkoa lagun...

AMALE'K

EDARI TA AKEITA ETXEA

AURE

Gozari ta azkariak

Ascao, 12 - 24 90 89 Urrtz.

BILBAO

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Abereenganako maitetasuna

BIDE OKERRETIK OTE?

Ni, eziketa edo pedagojia'ren ikasgayak egiten ibilli nintzanean, Donostia'ko eta Bilbao'ko «Normal» Ikastola'n, «Psikis» edo Gogoa'ren eziketan ikasi gendun gauza bat, ia oraiñtxe arteraiño, zutik egon da, Matematika'ko axioma bat bezela.

Pedagojia'ren egi eta legeetan, gure Irakasleak gauza bat erakutsi ziguten, Arkimedes'en egia beziñ ikutu-eziñekoa, eta erori edo beia jo-eziñekoa bezela.

Axioma edo teorema, edo ukatu eziñeko egi au, onela esaten zan: «Abereakin ankerra dan umea edo pertzona nagusia, bere kidekoakiñ ere berdiñ-berdiñ ankerra izango da, eta naiz ume, naiz emakumeagaz ere, ankerkeri itzalak egingo ditu, batere barrungo kezka gabe, nai duan edo aal duan guztian, abereen miñ eta naigabea, pena gabe ikusten oituta dagolako. Bere biotza zearo gogortu zayolako, abere gaxoen goseak eragindako antzi, eta miñak eragindako kurrixka itunak entzunaz. Eta txakurrak, katuak, txoriak eta basserrian ainbeste laguntzen duan astoa, «arrika ta makillaka» eta ostikadaka ta goseaz erabilltzeko oitura zarra daualako.

Nik karrera bukatu nuanetik arrezkero, beste biziki batzuek sartzen dira abereez gaiñera, umeak maitatu eta zaitu bear dituan gauzetan. Abek dira: zugaitzak, lorak, landarak, belarra ta abar. Onela erakusten da bada gaurko Eziketan egi au.

Abereak eta zugaitzak, landarak eta txoriak eta abar maite ez dituzten gizakiak (naiz gizaseme naiz emakumeak) ez dituzte maitatzen ez eta pertzonak ere. Eta abere gaixoak, aurrean tratu gaiztoen menpean erabiltzen dituzten bezelaxe, pertzonak ere erabilliko dituzte. Gizaki abek, beuren burua besterik errespetatzen ez dakitelako. Ez dute ikasi-ta.

Emendik dator, umetxoai, etxeko abereak, nai kanpokoak, nai txoriak, nai estankeetako arraiñtxoak, ondo erabilltzen erakusteko daukagun egin-bearra. Eta zugaitzak eta landarak, gauza biziak diralako, Jaungoikoak egiñak, ez dituztela iñoiz ez iñoiz *apurtu bear.*

Eta gaur egunean, Edertasuna zer dan ez dakiten Udala'k, eta dirua besterik maite ez duten errietako agintariak, gure Euskalerrien ikuspen ederrak ainbeste itxusitu dituztenean, gauza biziak izan ez arren, gure paisaje ederrak aldeztutzera beartuak gagoz. Eta geure baso aundi, arkaitz erraldoi, errekatxo maitagarri, itxasertz lilluragarri, eta ainbeste gauza, Izadia'k, au da, Jaungoikoa'k geuretzat emanak, dauden lekuetan errespetatzea eta maitatzea gure umeei erakutsi bear zayote, edo erakutsi bear dioegu, lan eder au euskaldun danok egin bear duguna da-ta.

Guk ere, geure umeen biotzak, lagun urkoentzat bigunak izan ditezen errukiz bete bear ditugu. Bestela eziñ geinkez bizi, mundu onetan. «Gizona gizonetzat otso» biurtzen dalako. Gaiñera otsoen alde gauza bat esan bear det, aiñ zuzen aiñtziñako euskaldun esaera zaar batek diona: «Otsoak otsokirik ez du jaten».

* * *

Aiñ zuzen, gai ontaz gauza bat datorkit burura oraintxe, eta ementxe esan bear det; Abraham Lincoln, Amerika'ko Estadu Batuen Lendakari jaunaren bizitzan, gertatutako anekdota bat da:

Lincoln, oso biotz aundi ta bigundun gizon on bat zan. Bere emazteak guztiz bizimodu txarra eman ziona, baiña berak, gizajoak! eroapen aundiz eraman zuana, iñori ezer esan gabe, eta iñork ezer igerri gabe. Abereak ere maite zituana zan.

Egun batean, bere bi edo iru Ministro'rekin, zaldidun kotxean zijoalarik (artean bide-zabal gutxi zan Amerika'n eta zalburdiak aal zuten bideetatik ibilli oi ziran), estanke aundi baten ondotik zijozela, txerri mordo bat ikusi zuten, uretan busti aldi bat artzen, eta txerri bat, ia-ia itoan, ur-ertzera eldu eziñik, erioaren igesi.

Au ikusi zuanean, Lincoln jaunak, zalburdia gelditzeko agindu zuan, eta bereala, kanpora irten, uretara urreratu, eta txerri kotadua bizirik atera zuan legorrera, bere jantziak naikoa bustirik. Bidearri, berriro ekiñ ziotenean, Ministro batek, ben-ben esan zion: «Estadu Batuetako Lendakari batek, ez zuan bere burua, txerri bat salbatzearren, orrela beeratu bear».

Baiña beenago Lincoln'ek erantzun zion: «Ez det, egitada au, txerri bat salbatzearren egiñ, Amerika'ri eta bere Lendakaria'ri, txerri bategaitik ez zayo ardurarik. Baiña nik ez dut lan au egiñ, txerri bati bizia salbatzearren, neure biotza ankerkeritik salbatzeagaitik baiño. Txerriaren esturasuna ikusi arren, itotzen utzi ba'nion, nere biotza, nere gogoa, ankertzeko arrixkoan jartzen nebazan, eta auxe ez nuan nai. Nere biotza, biguna nai det, errukiz eta sentimentu onez betea, oraiñ arte bezela».

Lincoln'ek, bere biotza ta gogoa, errukiz beteak gorde zitualako, «War of secession» (1861-1865) deritzayon gudan, esklaboen askatasunaren alde erten zan, au da, Estadu Batuetako, ego aldeko esklabo beltzen alde. Eta esklabista anker batek eraill zuan, ipar aldeko garaipen aundia irabazi zuanean. Nunbait esklabistak guda galdu bear zutela etsi zuanean.

Lincoln'en izena lurbira osoan itzalez esaten da, eta Estadu Batuak bere izena eman diote Nebraska Estadu'ko uri-nagusiari. (Darraike).

AZPEITIA'TAR JULENE

Pozak eta kezkak

UKRONIANOA TA FILATELIKOA

Alkar izketan ziran. Lenengoa buruzuriketan; bigarrena, ulerik ezean, besteari laguntzen. Ez ei ekian ukronianoak «Agirretxokolate» ezizena nork sortu eban... baiña..., bada-ez-bada, erabilli.

Zergaitik baiña orain buru-zuriketak?

1.—Aldizkariak laguntza bear... eta errizaleak esnatuaz ukatzen asi ezkero... zulora.

2.—Euskaltzaindikoak diru eske «alfabetatze (?) kanpainarako». Ta «kanpaina» ortako arduraduna: ukronianoa! Bere «kultural» eta «kondaira» textoekin.

3.—Ukronianoa «beka» baten billa ei dabil, edo obeto esanda, bere lagunak, filoloji ikasketak egiteko diru laguntza billa. Bear ba'da lortuko dau... baiña Euskal-Erriaren etsaiengandik, ordainsaritzat.

* * *

LOTSARIK ALA BURURIK EZ?

Azkenengo zenbakietan ikusten dugunez, zakur amorratua bezela saiatzen da apaiz izan zan idazle bat. Kezkak eragin diote, agian, bere antxiñako lagunen aurka! Dezatenez, beti izan omen da buru gabeko «pastelero». Orain zozolistoa omen da... baiñan patrika ongi betea ikustea maiteago duna. Ipuin politak dakizte apaizgintza utzi zun auzunean! Baita «Eurofondo» izeneko elkartean lanean sartu nai izan zunekoak ere «Eurofondo», noski zosializatu naiko zun.

MIXIOLARIAK

Astitzen ditu «kontestatario» paltsu izan zan orrek. Baiñan, sotana zintzilikatu baiñon aurretik, «egurra» zetorrenean, atzean gelditzen zan. Baita Gotzairengana labankeriz edo uriko alkaterengana atze-garbitzaille bezela. Oientzat eta oiekin ari diran «frantziskotar» burariñentzat laister arki genezake lan berezia... Iraultza nai? Cuba'ra lasta-kirtenak ebakitera! Oien zuloak betetzeko ez degu emen buru-auste aundirik izango...

PIER-ZIRI

GAZTE

ERKETZ DANZA TALDEA

Ba-dirudi, gaur egun euskalerriko oitura, izkuntza ta kultura berpizten ari direla. Ikus dezagun bestela, nolaz zenbait errietan saiatzen diren, euskal-jaiak, ikastolak edo alkarteak antolatzen.

Erri geienetan, beren jaiak ospatu dituzte, eta nork ez du sartu bere egitarau edo programan, bertsolari, abeslari pelotari, eta dantzaririk?

Esan bearrik ez da ta euskaldunari, benetan atsegingarri zaiola bere bereak diran oiturak azaltzea.

Euskaldun bakoitzak bere barruan, bertsolari, pelotari, abeslari eta dantzari pitin batba-duela esan zuen arrek, arrazoi zuela aitortu bear degu.

Zaletasun orrekin, griña orrekin esan genezake, sortu zela Lasarte'n; Erketz *dantza taldea. Talde ortako bi gazteekin, izan nuen alkarrizketa laburra azaltzeko asmoakin natorkizue beraz:*

—Nolaz sortu zan Lasarte'n «Erketz» dantza taldea?

—Auzo onetan, ba-da mendigoizaleen elkarte bat, Santa Barbara deritzaiona. Elkarte onen elburua, batez ere, mendiko ibillaldiak antolatzea izaten zen. Elkarte orren barruan ordea batzueri, sortu zitzaigun dantza talde bat sortzeko zaletasuna. Talde ori moldatu naiean ba-da ekin genion lanari. Asieran, Andoain'go batzuk etortzen ziran dantzak erakustera. Gerora, Donosti'ko «Argia» dantza taldeak ere erakutsi zizkigun zenbait dantza.

—Gaur nola moldatzen zerate. Iñor erakusten al dizute, ala zuek zuen moduz aritzen al zerate?



—Gaur egun, gu bakarrik antolatzen gera. Guk billatzen ditugu dantzak; liburu batzuk irakurriaz edo ta erriz erri ibilli eta dantzak arkitzen saiatuaz. Diru aldetik ere, gure saioetan irabazten ditugunekin, al dan neurri eta moduan konpontzen gera, gure utsuneak ordaintzen; soiñeko berriak direla eta abar.

—Zer esan edo adierazi nai diozute erriari, zuen dantza oiekin?

—Gure elburu nagusiena, antziñako dantzak berpiztea izaten da. Asmo orrekin gabiltza, lenagoko folklorea gogoratuz, dantzaren benetako nortasuna, or arkitu nai degularik.

—Zuena baiñon lenagotik, bai al zan Lasarte'n dantza talderik.

—Begira, guk ikasi berria degun dantza bat, ain zuzen, lenagoko dantza talde batek dantzatzen zuena da. Bere izena; dantzarena; Oria'ko sorgin dantza da. Bergara'ko langille batzuk dantzatzen omen zuten dantza ori, orain direla urte asko. Ikusten dezunez izan zen bai, gu baiñon lenagotik beste dantza talde bat Lasarte'n.

—Zuen lenengo saioa, jendearen aurrean, nun izan zen?

—Esan genezake, agerraldi garrantzitsuena, Tolosa'ko txapelketa batean izan zela. Ordutik, bertan irabazitako sariari esker-edo, deituak izan giñan erri batzuetatik, beren jaialdi edo erriko jaietan parte artzeko asmoz, Gipuzkoa'tik aparte izan gera, Portugalete'n, eta oraindik denbora asko ez dala, atzerrian izanak gera, Niza'n ain zuzen. Emen, oso egun gogoangarriak igaro ditugu, gure saio bikaiñenetakoa an egin gendun, eta bertakoek oso ondo eta egoki onartu ziguten.

—Aurrerantzean, ze motako eginkizunari jarraitzeko asmotan zabiltzate?

—Len esan degun bezela, antziñako dantzak ikasi eta zabaltzen alegindu ko gera. Bestaldetik, ez degu nai guk ikasitako dantzak guretzako bakarrik gelditzerik. Orrela, lanean ari gera ume talde batzuk eratu, eta geren dantza oiei erakusten, ez dadin galdu gure folklorea.

—Lasarte'n gutxi gorabera, ogei ta amabost neska mutik gazte ari dira jo ta ke. Euskalerri'ko dantzak berpizten. Ori aitortzea zoragarria dela nork ukatu? Lan orretan ez nekatu Lasarte'ko gazteok, erantzun jator eta sakona ari zerate eskeintzen. Eutsi beraz gogor eta gogoz. Zuen taldearen izenak berak, ba-dirudi irrintzi bat izan nai duela: ERKETZ.

RAMON ZAPIRAIN

EZ, EZ DU NAI...

EZ, ez du nai, ixillik geratzen dan euskeldunik, ondo gogoandurik, bera be erriaren aurka doan bat da-ta.

Ez, ez du nai, bere burua jaungoikotzat daukan euskeldunik, orreixek dira euren jakintza-txikikerizkoagaz kalterik andiena egiten dautsenak erriari.

Ez, ez du nai, bildurrak eraginda bazter baten geratzen dan euskeldunik, oin artean be naikoa egin dau bildurrak, berari begira egoteko.

Ez, ez du nai, bizi-modu lasa bategaitik erriaren languntzan, bere idealak galdurik, nasai ibilli gura daunik; olako euskeldunik ez.

Ez, ez du nai, erbi lez, katua dan euskeldunik, eta orretarikoak asko dagoz gaurko Euskal-errian, olakoakaitik gabiltzaz gaur egunean gabiltzan moduan.

Ez, ez du nai, gogape bako erririk, gogape bako erria ez doa iñora, ta ezer egin gura ba'dogu, nora orixe da, lortu egin bear deguna gure erri onetan.

Ez uste izan, irakurle maite, emen diñotan guztia sentimentu utsagaz gogandu danik. Sentimentuagaz jokatzea gauza ederra da, baiña beragaz utsean itsutu egiten da, ta itsututa ez dago zer-egin aundirik.

Erriak bear dabena, bere gogapena da, ta gogapen orren ondoren etorko da nortasuna, orduan bai, bide bat artuta jokatu leiteke.

Orregaitik, «ez du nai» lantzean gauza batzuk, eta nai duguz beste batzuk.

LANDALUZE'TAR JOSEBA

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 18
21-15-07 urrt. **BILBAO-5**

TA GU?

Lengo egun batean, kaleko urrutizkingela batean orritxu bat idoro neban: erderaz eta euskeraz, zerrenda banatan. Protestanteen zabalkundea. Zuek ikusiko dozuenez, gipuzkera garbiaz, euskera txukun, erdi-bideko edo euskeraz.

Aurreneko orrialdean SIÑISMEN AITORKETA dakar, azken esaldietan ikututxu batzuk emonda. Erdiko orri bietan, AMAR AGINDUAK, eurren erara, jakiña. Ta azken orrialdean, or ikusi daikezuena.

Etsaia zur, ernai, bere alorra ondo ongarritu ta ereintza egiteko. Ta gure arteko, eleizarteko, batzuk oraidik ezbaian eta akiakuluka, euskereari zor yakon tokia irakastetxeetan emoteko.

Nora goaz?, itanduko neuke. Baiña ez: nora izten dogu eroan gagiezala? Ta gure Bilbo'ko eleiza geienetan, ordua danean, eleizkizunetarako euskal-libururik gabe.

Nora goaz?... edo, nora zoaze, lagunok?

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

JAUNAREN OTOITZA

Aita gurea zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena. Betor zure errelnua. Egin bedi zure borondatea, zeruan bezela lurrean ere. Emalguzu gaur gure egunerako ogia. Eta barka izkiguzu gure zorrak, guk ere geren zordunei barkatzen diegun bezela. Eta ez galtzazu tentaldian sartu, baizikan atera gaitzazu gaitzetik; zurea dalako errelnua, ta eskumena, ta aintza, gizaldiguzietan. AMEN.

S. Mat. 6 : 9-13

ORACION DEL SEÑOR

Padre nuestro que estás en los cielos, santificado sea tu nombre. Venga tu reino. Hágase tu voluntad, como en el cielo, así también en la tierra. El pan nuestro de cada día, dánoslo hoy. Y perdónanos nuestras deudas, como también nosotros perdonamos a nuestros deudores. Y no nos metas en tentación, mas líbranos del mal; porque tuyo es el reino, y el poder, y la gloria, por todos los siglos. AMEN.

S. Mat. 6 : 9-13

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK

Martín Aldazabal TENDERIA, 3

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

KONTU KONTARI

ONDARRU'RA BEGIRA

Nere begi-begiko dutan KAMIÑAZPI'K idatzita Ondarru'ko Olea'ren zozo eme ta birigarro arraren arteko gora-beerak argitaratu dira «AGUR» gure aldizkarian oraindik oraintsu, eta ni ere bera bezelaxe ondarrutarra ta era berean, ala bearrez, erbestean bizi izanik, alako arrada batek eragin eta alaitu naiz, oraindik gure erri ta erritarren artean iñori miñik eta kalterik egiten ez dien alkarren arteko adarjote edo jolas gogoak jarraitzen dutela ikusirik.

Nere ustez zozo emea nola ar biurtu dan, mamorro eta muda belarren bidez, ondo ere ondotxo agertzen du bertso egilleak, seiñale edo ezaugarriak garbi emanaz, ta erakusten ere ematen digu beste edozertaz ere bertsoak moldatzeko gai dala, nor nai izan dedin. Baita Olea'k ere bere gisara bapo erantzun edo eman nai dio legezko dun arrazoia: *Artxandazar'ko* zelaian edozein *ezpaita* izaten txapeldun txori kantarien dema edo nor-geiagoko saioetan, Olea bi aldiz izan dan bezela.

Olea au zein izan zeinkean ez nekian, baiña oraintsu nere erri maitera egin dutan ikertaldi batean esan didate nor dan, obeto esanda, zeiñen semea dan, eta aita zana ondo ezagutu gendunoi bate mirari ez izan semeak, aitaren endakoa baldin ba'da, orrenbeste eta geiagokoak eginda ere. Orrenbeste ta geiagokoak diot, jakin dutan lez, zozo kontuak baiña zerbait geiago gertatu izan oi diralako nik ikusi ditudan beste tajuzko bertso batzuk diotenari oratuz.

Ez dakit KAMIÑAZPI jakiñean dagon ontaz, baiña aiñ txukun eta itxurazkoak iduritu zaizkidanez emen bialtzen dizkiot ikusi ta gero epaitu ditzan, euskal idazlan arazoetan berak daukan ezpairik gabeko gogo on eta jakinduriz. Bertso jartzaille onek, ostera, beste zerbait geiago ere jakin araziz, zozoa emea dala argi azaltzen du eta gure Olea'k nola erantzungo dion gero ikusi bear.

Agur KAMIÑAZPI eta besarkada bat.

ARANONDOTARRA

Olea ta bere zozoari

1
Zozoiño orrek gorputza
Iduriz aul ta otza
Bai izan bero biotza!
Uste gabeko bidegarrua
Ez zaio gerta arrotza
Eta basterturi lotsa
Kabian orain or datza
Gorringo biko arrautza.

2
Lenago ere or ditu
Olea'k ainbat arritu
Ez al dezute aditu?
Luma oridun txori gaixuak
Berak ditula gorritu
Pintatuz egiña baitu
Tariñ zana perikitu
Ez al da ori meriru?

3
Nola ez aipa kukua
Baraiku tontorrekua
Onen doiñu kantatua?
Udaberrian aurten Olea'k
Zintan grabatutakua
«Solfan» «FA» «RE» dan kontua
Eresi bedeinkatua
Beretzat betirakua.

4
Arrigorriko solasak
Batzuen erdi jolasak
Garaian garaiko gauzak
Aurtengo udan ortxe agertu
Olearen zozo baltzak
Errondako bi arrautzak
Zirala aizezko utsak
Bizitzako azken putzak!

5
Oraindik zenbat olako
Dugun ikusi bearko
Olakoxe dugulako
Pello Armintxa, Toixu, naiz Txordo
Txiki uzten ditulako
Orain arriz egindako
Irudi bat beretzako
Eskatzen dut sekulako!

TXI-PA-PA



Alkatiek esan dau

Oiñ berrogetamar urtetik atzera euken, bai, euren grasixe. Eurek zien orduko bizi-modu lako-lakoxiek; bardiñ-bardiñek.

Buru-auste asko barik, firinfaran ibilli eta izen. Ganera, gorabera aundirik ez euken lez erri txikixek, alkate izetie zan gozogozue.

Bilbo'n, Jesus'en Biotz'an irudi edo «estatua» esan leikixon altara librea da, erdiko kale printzipalan amaieran. Ori irudixori agertu zan egunien, Bizkai'ko Ayuntamiento guztiok izen zien an.

Andik urte batzueta, lagun batzuk Bilbo'ra juen bierra euki'ben. Eldu diez Granbixa, eta batek diño, Jesus'en Biotz'ari begire:

—I, au Amabirjiñau inaugurau zanien, neu nintzuan Alkate.

* * *

Beste baten, Arretxina'n probak, San Migel'ak. Eta goizeko meza nausixen abadiek sermo ostien, diño:

—Gaur, arratsaldien, puntziñoie lau te erdixetan asiko da. Alkatiek, bere «banko azuletik» erantzun dau:

—Ez ta ez. Lau te erdixetan idi probak asiko die-ta.

Abadiek:

—Entzun dozue, neure entzule maitiok, arratsaldeko puntziñoie iru te erdixetan izengo da...

Arek zien ganauek!

J. J. ARRIZABALAGA

«MARKIÑA»

Nai ta nai ez erromatar

Bidasoa inguruetan erromatarren aztarrenak aurkitu naian azkenengo urteetan diarduezan alegiñak ikusirik Kantinflas'en arako «Torero a la fuerza» jatort burura. Bai, zezenketarako gauza ez zala ala bearrez zezenkari egin zan lez, emen be derriorrean, erromatarren aztarrenak arkitu bear dabez. Orretarako besterik ezean txirla oskol bi ta iru plater zati lurpean, edo itxasoan kate zati zar bat aurkitzea naikoa dira.

Orain urte batzuk Ondarrabia'ko itxas ertzean ez dakit zer aurkitu ebela barria zabaldu zan. Geroago, orain iru-lau urte Irun'go eleiza nagusi aurrean erromatar aztarrenak aurkitu zirala ta izparringietan naikoa idatzi zan. Ez dakit bai batean eta bai bestean ezer baliokorik aurkitu ete zan. Beintzat arazoa bertan-bera amaitu zan.

Baiña, Bidasoa alderdi orretan erromatarrak egon zirala adierazoteko aztarren ganorazkoagoak aurkitu bear ziran eta zerbait aurkitu dabela dirudi. Irun'go Ama Santalen eliza zarrean erromatar denporako il-erria aurkitu ei dabe ta bertan orduko gauza batzuk.

Dirudianez orain arteko erromatar aurkitze baliotsuena izan da Bidasoa inguruan.

Ta jakiña, asko, ezin geiagoan poztu ditu gertaera onek. Dirudianez erromatar kutsua da askorentzat errien mailla goratzen dabena.

Niri neuri poz aundirik ez daust emon aurkitze orrek; jateko gogorik kendu be ez. Euskal Erria antxiñako denporetan iñok ez ebala menperatu irakatsi euskuen eta erromatarrak emen izan zirala adierazteak guk ikasitakoa ezeztatu egiten dabela dirudi.

Jakiña, besteren menpean aldi baten egoteak ez dautso bere burujaube izateko eskubiderik kentzen iñungo erriri.

Baiña Euskal Erria erromatarren menpean egon zala adierazteko Irun'en aurkitu diran aztarrenak baiño esan nai aundiagokoak bearko dira. Lurpeko eta noizkoak eta zeiñenak diran ezpaian artu leitekezan aztarrenak baiño balio andiagokoa dogu agiri -agirian bestera uste izateko: euskera zarra. Europa'ko ego-sartaldeko izkuntza guztiak latiñetik sortuak dira, erromatarrak euren menpean erri orreik euki zituanean lagatako latiñetik.

Gure erria be beste erri orreik lez erromatarren menpean egon izan ba'litz, orreik aiñako menpetasuna jasan izan ba'leu beintzat, orduantxe ilgo zan euskera. Europa'ko alderdi onetan geuk bakarrik itz egiten dogu erromatarrengandik etorri ez dan eta erromatarren denbora baiño lenagokoa dan izkuntzan.

Zer, errezoi au ez al da kontuan izatekoa? Ederto!

Baiña goazen amaitu baiño len Irun'go aztarrenez zerbait geitzera. Olako gauzak atsegin izaten jataz eta Ama Santalen'go eleizan zer ikusiko urreratu nintzan San Martzial egunean onen eleizatxotik jatsita. Eleiza itxita egoan eta barruan zer egon eitekean ez dakit, baiña guztia kanpokoa lakoa ba'da iñor ez etorri Irun aldera erromatar aztarren baliotsurik ikusiko dozuelakoan. Jasotako gauzak ez dakit zer diran eta ez dot ukatuko baiña or kanpoan egin diran zuloak edozein solo baztarretan egin leitekezan zuloak dira.

Baztarren baten erromatar «nekropolis» bikañagorik izango da!

KAMIÑAZPI

Eman dezagun azkena...

Ez nun gai ontaz geiago idazteko asmorik, baiñan ezin det burutik kendu, ta ikusi diran gertakizunekin, oiek eraginda, ezin naiz ixildu. Azkenengoz, diot berriro, ta ala izango da.

Zergaitik ez ziran joan oriotarrak Santoña'ra? Eman zuten aitzekia zan: arraunlari batzuk ez zeudela ondo... Baiñan, nere galdera aueri nola erantzungo diozute?

Nola leike, baldin Santoña'ko estropadetara eziña izan joatea, ta berrogei ta zortzi ordu barru, gero emen Donosti'n agertzea, Kontxa'n...? Bildur al ziñaten an irabazteko ziurtasunik ez zendutela...? Ez ziñatela Astillero' kin neurtzeko...? Zergatik arpegia ez eman, beste treiñerukoak bezela? Astillero'koen bildur, ala getariarren bildur al ziñaten...?

Jakin bear dezute, besteak bezelako kiroltasuna soiñean edukitzeko, joan egin bear dala, nola ango naiz emengo estropada guzitara. Ortarako aziak izaten dira guziak, ta ez batera joan eta bestera ez; esango ba'genuke bezela: «gu, guk nai degun tokira joango gera, komeni zaigun lekura arraunean egitera...»

Txapela kendu bear genioke sanjuandarreri ta kaikutarreri. Auek, naizta beti atzetik eldu, ala ere agertu dute bear dan bezelako kiroltasuna, ta arraunentzat maitetasuna. Oiek bear dute saria, diruz ez ba'da ere, medail urrezkoa.

Eta, zer esango degu Getari'ko arraunlarietzaz? Esango degun egi aundi ta mardula auxe da: Aurten oriotarrak baiñon geiago izan dirala getariarrak. Bai, ezin degu ukatu Donsoti'ko urteko-bandera oriotarrak irabazi zutela. Nik ordea, argi ta garbi esan nai det: Baldin igande artako ekiñaldia urrengo asteazkenarte galerazi ez ba'zuten, oriotarrak irabazitako bandera ori, Getari'ra joango zala. Ez uste izan iritzi au nerea bakarrik danik, galdegin besteeri, ta erantzunak ugari entzungo dituzu.

Jakin bear dezute, guziak, getariarrak beren saioak itxasoan egiten dituztela. Getari'k ez bai du ibairik... ta orregaitik, egualdi kazkar xamarra egon arren, dalako egun artan, etzitzaien ardurarik. Guziok dakigun egi aundia da ere, egun artako egualdia baiñon txarragoak ikusi ditugula eta estropadak egin. Ez al zaizute iruditzen, arraunlari onenak dirala, egualdi kazkarrakin ere jokatzen dutenak, eta ez itxasoa bare-bare dagonean bakarrik...? Ez jaunak, ez. Egiak biribillak izaten dira, ta biribiltasun ori gurdiaren kurpillak bezela biraka joaten da; ta orrela, jakin eta entzun gauzak, ze nolako eztabaidak izan dituzten oriotarrak beren arraunlariekin... Nola esan emen? Iñolaz ez! Kaleko zurrumurruak askotan ez dute onik egiten, batez ere, iñorentzat mingarriak ba'dira.

Santoña'n, larunbat ortan gertatu zana, laburrean esango det. Getari'ri alde txarrena irten zion. Ikusi dutenekin egondu naiz eta abek diotenez, getariarrak asieratik aurrena zijoazten, lenengo bira eman arte. Baiñan, OLAKORIK!, maria bean zegonez, Getari'ko arraunlariak ondoa jotzen omen zuten arraunekin, ta orrez gaiñera, ez egon zuzen baliza; zuzen joan bearrean, biraka. Ta orduan galdu zitun Gatari'k guziak.

Onekin esan bearko degu, bai, galtzen danean zeozeri aitzakia eman bear... Nik ordea galdetzen det: zergaitik itxasoko maria bean dagonean estropadak egin? Obeki ez al zan maria goian zegola egitea? Dana dala, ura joan zan, ta orain Donosti'n azkenengo ontan ikusi da ederki berriro, astillerotarrak kenduaz, bigarren onenak GETARIARRAK dirala.

Bukatzeko. Aurten, estropadak geiegi izan diralakoan nago. Datorren urtean, Jaunak lagun, amua ezpaiñean eduki, alegia, Astillero etortzen ba'da Donosti'ra... oriotarrak etorri ezetz... Beraz jarri ditut gauzak beren tokian eta eman dezadan gai oni azkena.

E. OZKIN

MATXITXAKO IV

EDESTI ETA ASALEA

Itxas eta erreka ertzetan AYEN-TOKI edo AYEN-LEKOAK izaten zirean eta aintxiñetako ERRIBERO edo ERRIBEKO, gaurko BERMEO uriaren izenak zirean.

AYEN-TOKI edo AYEN-LEKO oneik aintxiñako urte-zarretan, itxas-untziak lotuteko KAYAK zirean. Zugatzaren «adar» edo «ayen» sendoa itxaspe edo ur-pean gogorkiro sartu eta ementxe itxas-untziak lotuten ebezan, eta gaur ere, Bermeo'ko Kayan. itxas-untziak euren AYEN-LEKOAK daukez, eta berton euren untziok lotuten dabez. Aintziña-aintziñatiko izen ori, bizi-bizi emengo Kayan agertuten da.

Eta Edesti zarrak diñoskuenez, VIII eunkian, Bermeo'ko AYEN-TOKI edo AYEN-LEKOETARA, sarri-sarri itxas-lapurrak agertuten zirean, zitalkeri eta lapurretak egitera, baiña Euskaldun seme zintzoak bat-egiñik, gertatu zirean arerio edo etsayai aurka egiteko, eta FROOM, Bizkai'ko lurraldietako Nagosiaren Semea buru dala, itxaslapurrok azpiratu eta zuzitu ebezan.

Gudaketa antzeko jazoera onek azalduten dausku aintxiña-aintxiñatik, gure itxas-aldeko erriak, itxas-lapurrak ondo begiztauko ebezela eta batez ere Bermeo'ko erri-basterrak, eta izan ere ERRIBERO edo ERRIBEKO lurraldeok berarizko edertasun eta aberastasun andiko lurrak zirean, eta olantxe, bere oyanarteak zugazti tantayakaz estalduak zirean, bere basoetan basurde, baso-auntz eta ainbat patarik bizitzea eukon, ingeru guztiak egaztiz jantzirik egon zirean, lur-gaillur edo tontortxuak eta lur-alde eguzkitsuak igali gozoz orniduak zirean, orrez ganera, bere itxas-zabalak eta ibaitxu-egalak arrain eta arrankariz beteak zirean, benetan zireala lur-aldeok giza-bizitza erotsu eta erreza eroatekoak.

Eta amesgarrizko erri au, urriñetako gizon ez-ezagunak, atzerritarrak, begiz jota euken, batera edo bestera azpiratuteko egarri biziaz, eta askotan, ori dala-ta, asauetako itxas-lapurrak agertuten zirean, biotz-bako gizon zitalak, bekaikeriz itsuturiko itxas-lapur ankerrak, eta batzuetan «Saltzaille-erosle» antzera, bestetzuetan gure arteko asarre makalak arteztuteko «Gentza edo Bake» zale irudipean, eta geyenetan «Gudalari» eta «azpiratzaille» amorrotuaren lez elduten zirean, eta ainbeste burruka eta gudaketa artean, itxas-erri eder au, gizaldi luzietan naigabez, bildurrez, dar-daraz, eta ikara-gorriz bizi oi izan da, eta itxaso lan-neketsuak eta ekaitz gogorrak naiko ez-palira lez, itxas-lapurrok, erri guztia, erpe-zorrotzakin, ito-bearrean euken il zorian.

Baiña gogotan izan bear dogu bermeotar itxaslari eta arraintzalientzako ITXASOA beti izan oi-dala bizitzea, eta euroentzako, ITXASOA «azken bako ur-zabala da», amaibako ura, «arago eta aragoko urak», ASAU ETA ASAUKO ur edatuak, ur andiak.

Bermeotarren itxasoak ludi osoko itxasertzataraiño elduten zirean. Eta gaur egunotan ere, euren itxas-untziak Aprika eta Ameriketa'ko itxas-zabaletan, arraintsu lanetan diñardue. Jazokun oneik gogora dakarzgu aintxiñetako gizaldietan gure arraintzale eta itxastarrak, izugarrizko itxas-bale edo lumareak artu-oratuketa nairik, itxaso zear, «Lur-Barri» edo Terranoba billatu ebela, baita ere Eskozi, Eirelan eta Noruega'ko itxas-lurrak, eta lur batean eta bestean, ezaugarritzat Euskal toki-izenak ezarriten eutsoezan, olantxek, etorkerako gizaldiak jakin dagiezan lurraldeok, lenengoz, bizkaitar semeak billatu ebiezala. Eta orrez ganera, gure itxastar argi eta arraintzale sendoak ipar-aldeko itxaso izoztuetan, Groelandi lurralde andia aurkitu eben.

Eta aldi aretan, ondiñokarren itxas jakintzako arazoak erdel errietan, ezekiezan, baiña Euskaldun itxastar eta arraintzale argi eta kementsuak itxaso jakintzeari itxas-bide barriak agertu eutsoezan, eta aldi aretan, gure itxastar eta arraintzalientzako itxas-bide guztiak zabal eta eragozpen bakoak zirean, euren untziak orakari sendo eta bulartsuekaz eta aixe olanazuriakin, egazkada bat egitea lez, itxas-lur batetik besteraiño ibilten zirean, ezetariko kezka edo bildur barik, eta egiz esan geinke, aldi aretan, «itxaso zabal guztien jaubetasuna» eurak bakarrik eukiela.

Baiña, gaur egunotan, laterri gora-berak direala-ta, berezko oitura legeai jaramon barik, ezetariko begiramen barik, itxasertzetako tokietan, «laterri ur-munak» ba'litza lez, jaubetasun ezaugarriak ezarri dabez, sorturik itxasoetan etsai eta gebenlariak, benetan eurok direala eragozpen garratzak, eta gure arraintzaleak, ainbat gaiztakeri eta malmuzkeri ikusirik, ezereztu eta aulduta lez aurkituten dira, eta euren errietako itxaso magaletatik urriñetako «asauetako» itxaso aldeetara iges egin bear.

Benetan tamala, ludi aurrerakuntza aldi onetan, gizaseme argitasuna eta jakintzea iñoiz baiño geyago goratuten dan aldi onetan, laterri-lege ain gogorrak itxasoetan ezarritea; ezetariko jaramonik egin barik, Edestiaren jazokunai, gogotan izan barik gure aurretiko Euskaldun itxastarrak zireala «Lur-Barri» edo Terranoba baiño «arago eta arago» arrigarrizko lurraldiak lenengoz ikusi eta euren oiñakaz zapaldu eta ibilli diran toki ikusgarrien izpar edo albisteak Europa'ra erakarri ebezenak, Euskaldun seme argi eta bildur bakoak, eta aldi aretan, ondiñokarren iñortxok «amesetan» ere ezekiezan lur andi areik «itxasoz-andik» egoazanik eta gure itxastarren egiztasuna surrumurru-surrumurruka Kristobal Kolon'en entzutera eldu eta Europa Zarrari Ameriketa'ko lur barri edatuak aurkituaz, ludian izan leitekezan aberastasun andienak jadetsi eutsozan.

Eta oraintsuago, 1519-1522'garren urtietan, Magallanez itxastarragaz eta gure ELKANO'gaz, itxas-lurbira jazokun Edestitsuan, joan zirean Bermeotarren izenak, onexek dira: Akurio'tar Juan: —Arratia'tar Juan—, Basozabal'dar Antonio Txindurtza'tar Pedro. Intxaurraga'tar Martín.—Aguirre'tar Juan eta Sautua'tar Pedro.

Ez dago Lurbira osoan itxas-basterrik, Euskaldunen bizkarra busti ez dabenik, ez da ere itxas-lurrik bermeotarrak zapaldu ez dabenik.

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

IRAUPEN IBILTZA NEURTUA

Urrill onen 29'gnean

MENDIZALEEN GORA-BERAK

Iñoiz be ez obeto esanda: «mendiko gora-berak», urren azalduko doguzan eginkizunkaitik baiño: Beste «iñoiz» be esan oi dogu, «Ganguren» mendigoizale taldea ez dagola geldirik; ez ba, kirol au ez da geldi egotekoa-ta! Baiña ez da bakarrik eurok geldi ez egotea, besteak be geldi egoterik ez dabela nai izaten esan leike euren gertakizunak ikusi ezketiño.


Nerbion-Ibaizal Mendizale Bazkunen, au da, Baskonia, Edesa, Osea ta Padura taldeen laguntzaz eta Euskalerri'ko Mendigoizale Batza'ren babespean diran mendizale guztientzat, tira, nai dabenentzat, Ganguren'ekoak Ibilketa Neurtu au gertu dabe, bederatzi orduko edo geyagoko ibillaldi neurtua, Galdakano'tik guztiz urrundu bako mendiak zear ibilteko, ta Bizkai'ko zati mamintsu on bat ikusten dala. Gure marrazkian ikusten danez, ez dau goi-bera andirik, baiña bai nekerik, luzetxoa izango dalako, bear ba'da, bat baiño geyagorentzat.

Ibilbidea, polita da, naita alderdi batzuk piñu baltzez illunduak ba'dira be; aitzarte, bedar-bide ta era guztietako ibil-uneak diralako. Ara emen bera:

Urteerea Galdakano'n, Ganguren'en batzokian goizeko zazpiteran. Gizon naiz emakumezko irukoitz taldeak, iroiren edo minutu baten bitarteakin, azkenengoak urten arte. Bazabal, Apario'ko mendilepoa, Urkizu (egiztapena ta amarretakoa), Urtemondo (egitz.), Belatxikieta, Zornotza-Larrea (egizt. ta bazkaria), Arburu, Bizkargi (egizt.) Goikoelexia, Larrabetzu (egizt.), Legiña-goikoa, Uraburu, Elexalde (Galdakano'n) ta urtendako tokira. Ibillaldi ederra oiñak arin, soiña ondo trebetuta ta bularra garbi dabenentzat.

Aurreko gabean, urrungo mendigoizaleentzat izango da non lo egin, erri ontako mendizaleen etxeetan, beraz, ez daitela mendigoizale kementsu bat be, bertora etorri barik geratu non lo egingo daben bildurrez, eusko anai baten oe bigunean lo egin al izango dabelako.

ALTUNA'TAR JOSU



EUROPA'KO EKONOMI-ALKARTEA

TA BATASUNA

Noruega'ren ezezkoa dela-ta, Europa'ko Ekonomi-Elkartea'k edo CEE'k sartaldeko Europa'ren batasunerako damazkin oinkadak zer-edo-zergatik atsegin ez zaizkienentzako aste garaitsua izan da amaitzera goazen auxe. Eta oraindik ez dakigu datorrenak poz eta alaitasun areagoak ez ote dizkien eskeiñiko. Bereala bai da Dinamarka'ko erria ere bere naia edo iritzia agertzeko kinkan.

Astiro bezain irmo elburuak beteaz zijoan, orain arte, egun batez Erroma'ko ituna izenpetu zuten sei laterriek eratutako CEE. Eta ba dirudi, lortutako garaipenek bizkorturik-edo, elkartea osatzeko aurrerabidea gero-ta azkarrago betetzeko aalmena somatzen zitzaiola. Beintzat, dagoenekoz, beste lau laterriri erkidetzeko egokiera eskaiñia zien. Europa osatzen duten gaiñerako nazioekin ere —URSS'en alderdikoak izan ezik— gisa askotako itunak izenpetuak ditu edo arremanetan jarririk zeuden. Zalantzarik gabe, esanairik aundieneko ituna, amasei laterrik izenpetutakoa asko ez dela, alegia, beraiekiko lantegi-gaien salerosketarako mugak kentzera datorrena.

Orrez gaiñera, Europa'ko «amarrek» —Noruega'ren ezezkoa jaso aurretik— Erroma'n oraintsu egindako billeretan beste zenbait garrantzizko erabaki artuak zituzten. Leenik, politikazko elkartasunera iritxi aal izateko, diruarekiko batasuna oiñarrizkoa dela nabaiturik, europear Diru-Kutxa bat eragitea erabaki zuten; bidenabar ekonomi alorrean elkarri laguntzeko era litzakeela-ta. Bigarren, «inflazioa» elkarturik borrokatzeko asmoa; orretarako billera berezi batzuk eratzekotan. Jokabide au, berriz, beraiekiko ekonomigintzak biltzeko adibide ezin-obetzat jotzen bai dute. Irugarren, «amar» laterrietako lurralderik atzeratuenen azikuntzaz arduratzeko asmoak berriztu zituzten. Laugarren, aurrezikusitako epearen barruan, ots, 1974'gn urtean, ekonomi arloan batasun orora iristeko, elkartearen eginkizunak zeintzuk diran bein eta berriz baiezturik utzi zituzten. Bosgarren, Nazioarteko Diru-Kutxa'k edo FMI'ak ospatu bear zuen batzarrean —aste onetantxe bilduak dira— «amarrak» bat bezela agertzea, ots, CEE lez, eta ao-batez onen izenean iritzi ta asmoak erakustea. Eta azkenik, gizartegintzak eragiten dien kezka azaldu zuten, urrilleko batzar nagusian —Paris'en ospatzekoa— aztertua izan zedin.

Auek onela, noruegatarren ezezkoa eldu da. Bruselas'en biltzen diren teknokrata aundizkiek beiñere artu duten zaplatekorik sumingarriena izan omen da batzuen esatez. Nere uste apalean, ala ere, aien uko-egiteak CEE'ri min geiegirik ezin dezaioke egin, ekonomiaren ikusbidetik beiñik-bein. Azter ditzagun zifrak: osoko emaitzei edo PNB'ri dagokionez, 1971'gn urtean, «amarren» Europa'koa FF 3.904 billoi izatera iritxi zalarik, orren % 2 besterik ez zen Noruega'rena, ots, FF 78.362 milloi.

Orain nolanaiere, eta esate baterako goizetik gauera, CEE ta Noruega'ren arteko arremanak erabat aldaturik gelditu dira. Eta dakigunez, arek urtebeteko epea ezarri dio, arremanak berritzeko, erkidetzerik nai izan ez duen laterri txikiari. Erabaki onetan aserrezko edo zapuzkerizko keiñuren bat ikusi nai luketenek, nerekiko, gauzak bere lekutik ateratzeko griña agertzea besterik ez dute egiten. 250 milloi laguneko elkartea ezin ba'da, 245 milloikoa egingo dutela esan du Frantzi'ko ordezkariak, onoko-ta CEE'k eta Europa'ren batasunerako asmoek bere bidetik jarraituko dutela adieraziaz bezela. Noruega'k ere beste orrenbeste egin bearko du, bere naia ori izan dan ezkero. Ortaz, iñor ez dijoa iñoren kaltean.

Noruega'n bertan, ostera, leen uneko pozaldi ta zoramena kezka biurtu dela? Ezin zitekean bestela izan. Garaipena oiuka ta dantzan egiñaz ospatu zutenei lanerako ordua iritxi bai zaie. Nortasunez eta askatasunean jokatzeko aalmena duenak aurrera aterako du bere burua; Noruega'ko erriak ere bai noski. Ala ta guztiz ere, leengo gobernuaren lanak gaitzetsi ta emandako oinkadetatik itzularazi dutenen erantzukizuna aurrekoan ez da nolanaikoa izango. Dagoenekoz, ezportaziora zuzenduak diren noruegatar enpresek beren kezka larriak agertu dituzte. Izan ere, ez da jolasa izan norbere ezportazio guztiaren % 65 irentsitzen dien azoka zabal eta altsuari egin dioten burgoikeri edo ozarkeria egitea. Gaitz-erdi izango litzaieke Dinamarka'k eta Bretaiña Aundiak joera berdiña artu ezkero. Inglesen joera, ordea, ikusia dago. Argi ta garbi adierazi dute gobernuko arduradunek, baiezko erabakia bi lege-biltzarrek artua izan dalarik, atzeraeziña dela. CEE'ren sorreran beraiek kanpoan gelditzea erabaki ezkeroztik makiña bat izardi jaurti bai dute inglesek, berriro egokiera beraren diña izan baiño leen, bein eta berriz erru berean erortzeko. Bestetik, berriz, Dinamarka'ren erri-iritzia laister ezaguna izango dela nioen leenxeago. Baiezkoa emango duen itxaropena dudala aurrez esan gabe ez nuke nai geldi, ausardikeria baldin ba'da ere. Izan ere, oraintsu bertatik zear egin dudan ibillaldian, erritarren iritziak erdibiturik somatzen ba'nituen ere, esan dezaket ori ez zitzaiela oztopo beraien ekonomi-egiturak CEE'koetara egokitzen leiatsuki aritzeko.

CEE teknokraten ekintza soil bat dela baieztea, zenbaitek egin nai duen bezela, sekulako arinkeria deritzait. Ekonomi interesak bakarrik jokuan ba'lebiltza, ez ziran Luxenburgo, Irlanda, Dinamarka ta Noruega izango, ain zuzen, leenengo «amarreko» taldea osatzera deituak. Ekonomi soillari, ots, errien PNB'ari bereziki begiratu ezkero, gelditzen da oraindik kanpoan laterri lodiagorik... Aatik, aipatzen ari naizen gertakizunak oorea, eta ez txikia, damaio CEE'ren erakitzailleeri. Noruega'n agintariek ez, baizik, eta azken orduan, erritar geienen autarkiek, ots, erri askeak erabakia artu aal izan ba'du, orrek esan nai digu «seikoteak» ba' dakiela norengan begiak ezarri, elkartea zabal dezaketen erkide berriak aukeratzerakoan. Egiazko demokrazian oiñarritutako Europa Batua atzeman nai dute, bere doai eta akatsekin bederik.

Dirudienez, ordea, kanpoan daudenetako batzuek ez dute ori ulertzen, sortalde Europa'ko laterri komunistek, adibidez. Izan ere, URSS'en alderdiko laterriek bere garaipen egin nai luteke noruegatarren uko-egitea. Txekoslobakia'ko organo nagusi den RUDE PRAVO'k dioen bezela, «laterri sozialisten —komunisten— diplomaziaren garaipen bat» dela. Ori da gauzak naasturik norbere erriari ziri biribillak sartzeko gogo gaiztoa! Eta bien-bitartean neri galdera bat egiteko bearra sortzen zait neure baitan: Noruega'k ainbat aukera izan al zuten txekoslobakiarrek URSS'en uztarpetik iges egiñik sartaldeko Europa'ra urbiltzeko, orrela nai izan zutenean? Praga'ko udaberrian esku artu zutenek erantzun dezaidatela aal baldin ba'dute espetxetatik edo zokoraturik dauden lekuetatik...

Eta bere batasunaren alde jokatzen ari den Europa'ra itzulirik, beaztopa egin duela oraingoan?... Eta aurrerakoan ere egingo du, bein baiño geiagotan ere, ziur aski. Bidea luzea, latza ta kakotsua bai da. Eragilleek beraiek ere jakingo zuten noski, lanean asi zirenean, egun baten edo bitan burutu zitekean ekintza ez zela eskuartean artutakoa, ots, Europa zaar eta miragarriaren batasuna.

JOLU'K

Naparroa'tik

ARALAR'KO SANTUTEGI'TIK

1942'gnean, Urrillaren 30'gnean, Santutegi'ko ostatua erre egin zan, ta ogetamabi urteetan, aldan bezela moldatu izan dira, bai bertan egotez oi dagozen yendeak, abade ta abar, baita bertara yoan oi izan diran beilariak ere.

Orain, Naparroa'ko Aldundiak, ostatu barri andi, ta ederra egin dau, zeinbait gura yende barruan ar daikeena. Ogetasei milloi ta geiago laurleko kosta izan yakoz egitea.

Iraillaren 29'an, Mikel Deunaren yaiean, Aldundiak ofizialki Elizari emon eutson. Orretarako, egun orretan, gongotzaiña ta gotzain laguntaria, biak eta Naparroa'ko Aldundi osoa igon ziran Aralar'ko Santutegi'ra. Ta José Mendez Asensio gongotzaiñak eta Aldundiaren buru, Marko'tar Amadeo'k, emote orren garbitasuna izenpetu eben.

Ogetasei milloiak, Elizak Aldundiari, 50 urteetan itzuli bear dautsoz; baiña, bitartean, obaririk ordaindu bage.

Mikel goiaingeruaren yaiean zabaldu zan ostatu barria; baiña ofizialki bakarrik orduan. Oraindik zer edo zer peitu dala-ta; Azillean-edo asiko ete dan, diñoe. Yaierako yendeketea erruz etorri zan; geiena euskaldun yendea. Eliza bete-beterik geiago ezin artuz; ta elizatik at, be inguruak be beteta. Esan dot, euskaldun yendea zala geiena, giputzak ditugo leenengo Aralar zaleak-eta.

Mikel Deuna, barikuan zan; eta igandean oraindik yende askoz geiago agertu zan. Mundu bat...! Yendea, iñurri pilloak lez, bazter guztietan...! Mikel Deun'aren egunean, euskal-meza abestua. Alango yendeketeak, euskeraz meza kantetan, emoten eban edertasun bat...! Eguna, be, eder-ederra zan; zeru garbian eguzki argia.

Aldun batek, erdalduna bera, euskal-mezea eder-eder izan yakola esaten eban. Ezagun danez, bere euskal-kontzientzia biztu yakon apur bat, egun artan. Bilbo'ko urrutikuskiña egon zan, baiña zoritxarrez ez eban euskeraz ezer egin.

Zorionak Aierbe'tar Inozenzi abade yaunari, euskal idazle yator eta argiari. Ainbat eta aibat urtez, egonarri ta iraupen goresgarria izan daualako. Ona orain dana burututa, ondore ederragaz. Zorionak eta urte askoz!

An egoan AGUR'eko «Ira» idazlea, be, yendeen artean. Berba egin neban, eta Donosti'ko ta Donosti inguruko euskal idazleen barri yakingarriak emon eustazan aldi laburrez. Alboan eukan emakume bat, eta: «auxe da, esan eustan, Arenaza'ren idatziak, gipuzkoeraz ba'legoz bezin ulerterrazak egiten yakozala esaten eban arako andre euskaltzalea». Ainbat barri esan ondoren, orduan berak neri:

—Eta, egon ete ziñan zeu Auritz'en «Larreko»ri egin omenaldian?

—Bai izan nintzan.

—Ai! Beste azi-orraziak izan ba'lira, «Larreko»gatik zeinbait eta zenbait yende yoango zan ara...! Euskalerri osoa yoango bide zan...! «Larreko»gatik!

* * *

Aztu yatan zer edo zer.—*Auritz'eko kronika egin nebanean, idaztortzaren ariñeketan, zer edo zer paperean ipiñi barik yoan yatan.*

Muskari'ko ziñegotzi bat eldu zala, bazkaltzen giñalarik. Eta bazkal ostean, berba egin ebala ta yakitera emon euskula, an, Muskari'n, be, arrera ona egingo dautseela euskal yaiei.

Ea ba euskal giroa biztuten eta zabalduten dogun alde guztietan...!

YURRE'TAR JULEN A. K.

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

ERRIETAKO BARRIAK

Bermeo

AITA GOTZON BIZI DA...

Urril onen amabosgarrenean urtebetetzia da Kristoren apaiz zintzo, egizale eta, eusko seme bardingabea il zala. Bi urte luze ordutik ona. Ez aztuteko egun ituna berau benetan.

Bermeo eta ingiruetako askoren biotzetan Aita Gotzon bizi da... Eta bere lanagaz arduretuta ibilli ziranak eguneroko arazoetan, Gotzon'en izkera gozo, alai eta leuna entzungo dabe euron gogo-barrenetan.

Begiratu ludi zabaleko lau aixietara, eta ikusiko dozu, gizonik zindo eta aupagarrienak jausi dirala bai gexoz edo izkilluaren indar bidez.

Beti agertu dira ludi ziar erraldoi antzeko gizadi belgundariak. Gizon osoak. Bildur gabeak. Euron lan eta ekintza gustiak gizonaren alderako izaten ziran eta bai erri txikiaren gaizkakunderako be.

Maitegarrizkoak dira euron elburu ametsak. XXIII Jon'en antzera, aleginduta lortuten gizonarentzako, ZUZUTSA, BAKEA eta AZKATASUNA. Baita guzur bako ANAITASUNA be.

Gotzon'en bizitzan gaste talde bizkor ta ibilkor bat egoan Bermeo'n. SUKARRI eukon izena bazkun orrek. Bere lanik kutunena. Ama elea zan: Antzerkia; Abestia; Dantzea eta Kiroltza. Arazo oneikaz gura eban Gotzon'ek erakutsi eusko gizasemeari benetako BIDEA.

Gotzon irakaslea, Goi Aberritik begira egongo da, irri-barreka, emen, lurronetan, zer egiten dan ikusten. Eta bere buru ta biotz neketuari ezker edo eskoi aldera eragiñik, esango dautse bere ikasleeri, nondik zabiltze nere adizkide kutunok? Minkorra benetan itz oneri emoteko erantzuna.

Bai Gotzon, zure jarraitzale neska-mutil gasteak, biar ba'da, lozorroan egongo dira, baiña ez aztuta. Eta Urduliz'ko baserritxoan egiñ dabien ziña AURRERA eruango dabe.

Aita Gotzon'en soiña austuta egongo da. Baiña bere Gogoa, ondikarren, bizi da. Bitarte onetan, biotz-otoi umil bat doatzu adizkide.

URKIDI

Arratia

Lenengo ibiltaldia Arteaga'ko Ugarte'n amaitu ondoren, Zeanuri'raiño eldu nintzan bigarrenean, Olabarri'ko errotara, gero, beste lekuren batzuetara zer ikusiko, entzungo ta erosiko.

Errotearen klun-klon abesti motelak uruna ekarren askara, ta zelako uruna!

Ona joten dabe gibeletik naiz guntzurrunetik osasun gabeak diranak; biotzerre, sabel-zirin eta lo baketsurik ezin egin daben guztiak. Au argitaratuko danerako labigerrik gozoena bertan izango dogu talo-morokil zaleok. Taloburdin eta maskillutan ostera, ez joan Zeanuri'ra, ez dozuz aurkituko-ta.

* * *

Atutxa'ren aragitegian aukerako txarri lodiak eta basurda gizenak sapaitik dindilizka; asko erosi ta azkar ordainduten dauanarentzat, barriz, txistorlukainkatxo bat esku-ikusitzat. Eskerrik asko.

* * *

Pujana Bixente'nean landan azke asitako oillasko zanko-gorriak, arrautz gorringotsuak, coneju begigorriak e. t. a. Gaur egungo baserritar-baserritarra baiña, aterik-ate eta urirk-uri ondasun saltzen ibilteari emona ez dago, eta gauza ona nai dauna, Altzusta'ko auzotegira joan-bearrean izango da.

* * *

Amabosten bat egunez ez zala errian agiri-ta, Manterola'tar On Gabirel'en billa be ibilli izan nintzan, bildurrez, idazti-liburu pilloen batetik urten eziñik, edo gai bardinezko meta garaien batetik jatsi eziñean izango ete zan. Areitz-ezkur mamitsu urtetsua birikiak aize-barritutera anka eginda egoan eta ezin ikusi ba. Ondo izan eta ongi-etorri.

* * *

San Justo auzuneak, millakak pesetatako suziriakaz aizea urratuteagaitik, orain izen barria: «Kabo Kennedi».

Berebillean gengozala etxera biurtuteko, amabost erdel langillegaz alkartu giñan; Atleti zaleak izan ziran eta «agur» esaten bere poliki ekien.

Eta besterik zer? Ba, emen ni bizi nazan auzoan arratikume batzuk ezagututen dodaz amamari aoa betean «abuela» deituten dautsoenak. Intxaurraga-Etxebarria aitite-amamak, eta Intxaurraga-Ozerin doguz erdeldun barri txikiak.

LANDAJUELA'TAR A.

Larrauri

Lengo domenak, Larrauri'n «Sukalki-Eguna» izan dogu goizeko 11'etan. Gamiz'ko talde bategaz joan giñan; eldu gintzanean erdi eginda egon zan. Ango suak eta keak, miragarriak izan ziran. Ordu bat eta erdietan irurogei kasulen presentaziñoa egin zan. Gamiztarrok bostgarren eta seigarren saria altze genduan.

Orren ostean, kasuela orreitako sukalkiak jaten asi giñan. Arratsaldean jotan dantza-taldeena egon zan. Lenengo eta bigarren saria Ondarru'ko dantzarientzat izan zan. Danak be oso ederto egin ebazan euren dantzak.

Egun zoragarria pasa neban.

TORRONTEGI'TAR MAITE
(12 urte)

Arrasate

ARRIARAN'eri

Iragarrita zegon bezela, joan zan illaren 30'ean omenaldi ondo merezia egin zirzaion. Bi bidar txapeldun esku-pelota jokoan. Lenengo, arratsaldeko lauterdietan asita jokatu ziran bi partidu emengo Iturripe'ko pelotatokian. Lenengoa Arriaran anaiak, Etxabe eta Arriola'ren aurka, Jokaldi polita benetan eta lau pelotariak ondo egin ba'zuten ere, Arriaran II izan-zan onena, neuretzat beintzat. Irabazle Arriaran anaiak. Beste jokaldi bat egin zuten: Muguruza eta Etxaniz'ek Lazkano eta Gabellanes'en aurka. Gazte oneik ere ederto aritu ziran. Jende askorik etzan izan partidu eder orreik ikusten baiña dirutza ederra batu zan, sarrerak asko saldu ziran-ta. Dirutza au Ikastola'ren alde izan zan, ortarako pelotariak duan jokatu zuten. Gero, illuntzean apari anaikor bat egin zan eta 200 ta geiago bertaratu ziran. Zorionak Joxe eta urte askotan jarrai olaxe osasuntsu.

IKASTOLA

Len, San Jose izenakin eta orain Xabier'dar Pantsezka Deuna izenakin ezagutzen dan Ikastetxea'n zortzi gela zabaldu dira sei urtetik gorako ikastolako umeentzat. Gelak ederto apainduak dagoz gaurko eziketak agintzen duan erara, Adiñ ortatik berakoak, ba-dituzte beste iru ikastola Musakola, San Andres eta Pantsezkatarren Lekaidetxea'n. Aurten bere, geitze aundia izan dute Ikastola'ko ikasleen artean. Baiña tamalez, naiz eta gutxi izan, ba-dira aundietatik urtenda beste Ikastetxeetara joan diranak. Guraso kezkati gutxi batzuk izan dira au egin dutenak. Uste dute erderaz bakarrik jakinda jakitunagoak izango dirala eta oker dagoz, ba-da, lotsagarria izango litzake gero euskeraz zerbait galdetu ondoren erantzun bearra izango ba-lute; «yo no sé en vasco». Ekin ba, gurasoak, Ikastola'n zeuen umeak jarraitzen, beste Ikastetxeen batzuetan euskeraz irakasten asten diran artean. Onelako Ikastetxe'ak ba-dituzte, batez-ere Azpeiti'n, ba-da, jakinerasi euskun Loiola Irratiak erri ortan badirala bi Ikastetxe: «Jesuitinas» eta «La Milagrosa», sei urtearte euskeraz erakutsiko zietela eta ortik aurrera bi eletara, agindu dutenak. Zorionak Azpeiti'ko gurasoei eta ea emengo, gure erri ontako Eskarnetar Lekaime'ak eta San Viator'ekoak bide orri noiz jarraitzen dioten, ba, errian ondo ikusiko litzake bide ori.

LIBIA'ra

Emengo «Arrasate» entzute aundiko coperatiba lan-olak bialduko ditu ola-tramankula aundiak. Orrela osatuko dute Aprika'ko Laterri ortan landol aundi bat. Au lortzeko Japon, Alemania eta beste batzukin euki bear izan dute leiaketa gogorra, baiña guretarrak izan dira garaille. Zorionak «Arrasate» alkarteko langille eta zuzendarieri.

UDALAITZ

Orozko-Ibarra

SENDI BARRIA

Ibarra'n, Merzedetar moja-eleizan, «mojetan», ezkontza durundutsu bat izan da joan dan Irailleko 23'gnean, larunbatean. Ezkongaiak —orain ezkonbarriak— Azkoaga'tar Garbiñe ta Aranguren'tar Xanti, neska-mutil benetan lerdenak ziran. Ezkontza onetara, Garbiñe'ren osaba jaupari bi, bata Abadiño'ko abadea, Letona'tar Aurelio ta bestea Deusto'ko pasiotar praillea, Letona'tar Felix etorri ziran. Ezkon-eleizkizunak Aurelio jaunak egintzaebazan, Felix prailleak organu-jotzaille egiten ebala, ta eusko ereski jatorrak adirazi, bitartean. Ugao'ko «Etorki» neska-mutil dantzari taldeak, danak, Xanti'ren lagunak, Mezea entzun ondoren, eta paperak izenpetu, eleizatik urtetean, ate aurrean, mutillak ezpataz eta neskatillak dantza-arkuz ustai andi bat egin eutseen ezkonbarriei. Gero, Garbiñe'ren nebeak, Felix'ek aurreskua ta taldekoak ezpata-dantza ederra ta Euskalerri'ko dantza garbiak eskeiñi euskuezan.

Bazkaria Ugao'n. Bazkari on-ona, baiña luzetxoa: txanpan, akeit, txolakada paitar, ujuju ta dantzea. Dantzea ona da batez be gure Euskalerri'ko dantza garbia ba'da... baiña, an, Felix, erbesteko soiñu larregi ibilli zan.

Zorionak, ezkonbarriok. Madril'etik zear Kanarias'en zeuen eztai-txangoan ondo ibilli!

EUSKEREA

Iraillaren 26'gnean eskolako ateak idigi ziran barriz, aurtengo ikastaldia asteko. Irakaslea erdelduna ei-da. Ziur, ez dau euskerarik jakingo. Beraz, ez dau euskeraz berbarik egingo ta gitxiago irakatsi. Au negargarria! Ez ete-da bidezko ta berarizko umeak euren izkuntzean ezitea? Noiz lortu al-izango ete-dogu bear dan agintza, euskotarrei euskerea irakasteko eskoletan be? Eskandinabia'ko laterrietan eurena irastea aginduten ba'dabe, eta Irlandan euren zelta edo gaelika, ango euren izkuntzak guk, euskaldunok zergaitik ez ete-dogu izango bereizko eskubide au?

BESTE ALDERA

Udatiarrak joan dira Ibarra'tik. Tamalgarria au da: auzokoakaz euskera ikasi bearrean, oneik erderaz berba egitera beartu. Orraitiñok, ba-dagoz batzuk, Ibarra'n, euskereari eutsi ta euskeraz beti egiten dabenak: Tomas Rotaetxe, Larrea, Sautua, Aldekoa, Bidal, Olarte'ko Larraondo, Zaloa'ko Larrea, Aranguren'go Mantzarraga, Olabarria, plazako Larrakoetxea. Oneik beti euskeraz... Ori, ori!

LAGUN URKOA

Iturbe'tar Jose Luis, bear barik itxi ei-dabe. Mutil ona, euskerea beti aoan, arotz beargiña, orain amar urte Orozko'ko pelotaririk onena. Mojetan yagozan neskato atzeratu kanpotarrak etxakiak zer barrabaskeri egin yautsoen!... Ea auzoko guztien artean emon edo topetan yautsoen bearra. Merezi yok mutil on orrek.

GEURE GEUREAK

Tamalgarria, zoritxar itzela! Ibarre'ko etxeetatik igesi doaz Euskerea ta Agurtza. Nor errudun? Udatarrak eta telebisiñoa batetik eta gu geu bestetik, erdi bana. Goizetako zortziretan, irrati-transistorra erabilliko ba'leukee beintzat, Bilbo'ko Erri-irratia entzuteko!

A. OLABARRIA

Berriz

Asi dira gure umeak eskoletara joaten. Gure kaleak utsik gelditu dira, utsik eta ixillik, autoen zaratotsa bakarrik entzuten dogula.

Asi dira Ikastolak be. Beste gazte batzuk lez, gure erriko neska-mutiko azitxoak Durango'ra joaten dira ikastolara, eta gaztetxoak lengo lekuan gelditu dira. Alan be, lengoan batek esan eustana dirautsuet: «Zetarako ikastolea eta zetarako ibilli bertan, erderaz berba egiten entzuten doguz-ta?» Zoritxarrez, adiskide orrek errazoi guztia eban.

Berriz'en ez dabil ume askorik ikastolan. Penagarria benetan euskaldunok geiago ez arduratzea! Askok jakin be ez dakie ikastolea zer dan. An ez dabela umeak ezer egiten pentzatzen dabe, an ez dala ezer ikasten. Eta oker dagoz: umeak iru urte ezkero bialdu daitekez ara, eta ondo etorten yake alkar ezagutzea, alkarregaz berba egitean, irakurten, idazten, jolas egiten eta abesten ikastea. Ikastoletan, beste eskoletan ez dabezan gauza asko ditue.

Baiña, entzun: ez dogu pentzau bear ikastolak an dabizan umeen gurasoenak bakarrik diranik eta ango ardura guztia gurasoak bakarrik artu bear dabenik. Ez; ikastolea guztiona dogu, ikastoleari guztiok lagundu bear dautsagu. Zerbait oker dagoala? Alkartu ta esan argi ta garbi; entzun eta ikusi batzuen eta besteen eritxiak eta jokabideak, baiña ezelan be ez «emen auxe ta auxe egin bear da, neuk esaten dodana ta besterik ez».

Eta besteak ixilik? Ez, ori ez. Gurasoak dabe geien be indarra, eta euron asmoa bete bear da, guraso geienen asmoa, eta ez baten edo besteren asmoa. Bestetara jokatzea, barriz, indarkeri utsa izango litzake, diktadura motza. Euskalduna iñoiz be ez da izan indarkeri-zalea. Indarkeri-bidea artzen ba'da, barriz, agur gure ikastolea, gure ikastolea bertanbeera jausiko da. Ausnartu ondo, berriztarrok.

KARMELE

Galdakano

ZIZA LEYAKETAN

Urril onen lenengo igandean, Tolosa'n zan ziza leyaketan izan ziran gure erri ontako «Peña San Cruz»ekoak, euren perretxiko mordo ederrak ondo lerrokatuta ebezela, bosteun eta iru muetakoak danera, baiña ori ta guzti be, laugarren saria «bakarrik» lortu eben, eta lenengoa pozoindun mueta geyen aurkeztu ebezalako. Ori ta guzti be ez dira atsegiñez etorri gure adizkide erritarrok, sari obea uste ebelako. Tira mutillak, ez asarratu, Tolosa'ko «Zuzutza» enparantzean ez zan zuzutsabagerik izango-eta.

EZKONTZA

Iraillaren azkenengo larunbatean, Euba'ko lekaideen txadonean, Usansolo auzuneko Angoitia'tar Gergore ta Barrueta'tar Joseba-Erramun gazte kementsu euskaltzaleak ezkondu ziran. Guztiz zoriontsuak izango al dira ezkonbarri jatorrak.

OSATEBAKUNTZA

Urril onen bigarrenean, Barakaldo'ko «Cruces» osatetxean, Uraska auzuneko Okamika'tar Iñaki gizon gazte euskeltzaleai osatebakuntza egin eutsen. Ebaketa ori ez zan garrantzi andietaikoa be-ta, naizta osatebakuntza onik izan ez, ondo urten zala esan dauskue, ta benetan poztu gara, AGUR'en irakurle onek ondo urtetiaz. Lerro oneik argia ikusi dabeneko, etxealdean izango dalakoan gagoz, ta orretara izango al da.

BASA-JAUN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

Lili Zuria Odoletan



Ogetabost urte aurten, Urrillak 27, etxetik urrin, odoletik maite ebazanengandik urrinduta ta, biotzez maite ebazanen artean, il zan ludirako, eta betiraunerako jaio, Zubiri'tar Jokiñe, Teresalina Ama lekaime ziñopea, 29 urtedun zala.

Katxemir'eko Baramulla'n ixuri eban bere odola, Kristo'renarekin bat eginda, ludi au Jaungoikozko bideetara ekarteko. An bertan, datorren 27'gnean, bere oroitapenak eta eleizkizunak izango dira, ta an bildu be, euskotar mixiolari asko bere senditarrekin batera.

Mixiolari joan zan, bere erri au ziñesmenean sendo zan garaian. Gaur, bera lakoak Indietan bear ba'dira be, emen, bere etxean, bearrago.

Otoitz, arren, Jokiñe, Jaunari, euskogogoaren alde!

IBUR

ARGENTINA'RUNTZ BEGIRA

MARTIN FIERRO - 1872
MATXIN BURDIN - 1972

Arjentina'ko literaturaren ain ezaguna dan MARTIN FIERRO poemak aurten betetzen ditu eun urte. José Hernández idazleak «gautxo» jendea gai arturik bururatu zuan bertsoaldi ederra lenengo aldiz 1872'gn urtean argitaratua izan zan. Gertakizun au aundira ospatzearren José Hernández poeta egilleari arrizko erti-irudi bat eraiki diote Pehuajó errialdean. Eta au dala-ta jaialdi berezi bat antolatu dute Azillaren 10'erako. Arjentina guziko agintari-nagusi, idazle, olerkari ta erri xeak omen ori eskeiñiko diote esker onez. «Gautxo» jendearen antziñako bizi-modu, oitura, ispiritu ta gogoa ta gaiñerako zer-nola denak bildu ta bertso mamitsuetan jarri zituan José Hernández olerkariari, Ameriketako poemarik errikoiena ondu bait zuan, Arjentina'ko kulturari elederrez lekukotasun ez ilkorra emanez.

MARTIN FIERRO beste izkuntza batzuetara itzulirik dago. Ezagunena inglesez egindakoa bear ba'da. Orain berri on bat eman nai dizuet, alegia, José Hernández'en poema ospetsua laister euskeratua ilusiko degula. Gure Txomin Jakakortejarena euskal idazleak bukaturik dauka ta Buenos-Aires'eko «EKIN» argitaldari etxeak laister agertzekoa da.

MARTIN FIERRO euskeraz buirtzeko zio berezi bat izan dute: Panpa'ko poema au euskaldun kutsuz beterik dagoala. Arjentina'ko zabaldi aundi aietan 1850-1870 urteetan euskaldun anitz bizi izan zirala. Azul, Bolibar, Olabarria, 25 de Mayo ta Pehuajó inguruan kokatutakoak indioekin ar-eman biziak izan zituzten, alkarrekin lanean eta jolasean jardunez. Euskaldun aien artean Txomin Jakakortejana'ren aita ain zuzen... Oraingo txandan Txomin semeari egotzi zaio ingurumari aietara anima-artzaintzara joan izatea.

Onek, MARTIN FIERRO irakurriaz, bereala antzeman zion ipuiaren gai askok euskal tankera zutela bai neurtitz, esaera, oitura, ta gogoz abiatu zan euskeraz itzultzen. Gero ta geiago agertu zitzaion gure «bertsolari» ta Panpa'ko «payadoreak» eskola berdiña zutela; eta kontuan erortzen zan zenbait xeetasun, bertso-neurri, sikoloji ta poemaren mamia euskaldun menditarren ezpaldunak zirala. Lanari jarraituaz Jakakortejarena'k itzulpen oso, zeatz eta biribil bat egiña du; eta J. l. denbora gutxi barru irakurtzeko eran izango gaituzu. Dakitenak, lan ederraren susmoa artu diote ta gure D. Txomin berastegiarra MARTIN FIERRO ta José Hernández'i Azillaren 10'ean Pehuajó'n egin bide dan omenaldiaren batzarkide izendatu dute. Ordurako MATXIN BURDIN euskal itzulpena atera nai luteke «EKIN» etxekoak. On litzake beroni gure euskeltzaleak aldez aurretik eskatzea ain liburu bikaiña garaiz eskura dezaten.

Txomin Jakakortejarena'ren berri ez dekitenei esango diet aspaldi J. Aitzol'ek goretsi zuela 1931'ko Olerti sarituen artean autaturik: «Olerki errikoia, zion, erri-erraietatik datorrena». Bertso zaarren antzera olerki berriak tajutzen dakiana. Zorrotz eta biziki ontzen ditu aapaldi guziak: «Gure astoak», «Amandrearen oillo-aldra» eta «Moro Katua» irakurriaz gogora datozkigu gure ikastoletako aurrak pozaren pozez oikatzen zituzten Katu maltzurraren gaiztakeriak:

Katu beltz bat ba-dugu,
«Moro» du izena;
Beltzago du ark barrena...

Goraxeago aipatu dizudanez MARTIN FIERRO'n euskal bertsolarien giroa arkitzen da. Eta beste bein esan nuanez, berriz ere esatera ausartzen naiz ORIXE'ren «EUSKALDUNAK» poemarekin zer ikusia ba duala. «Alako erri-kutsu, bizitasun eta sentierak... (Compendio de Euskaldunak» Zarauz), jende xumearen urratsak nun nai: baserritar eta «gautxotarren» alkartea.

Ataun'go Aita Bonifazio, «Instituto Americano de Estudios Vascos»eko zuzendariak ere ori bera aitortu du naiz bereizkuntza geiago dituala garbian ipiñiaz. Nola nai MARTIN FIERRO eta EUSKALDUNAK poemen azterketa egin eta gero kritikariok errez arkituko dituzte Panpa'n «payadore» izan ziranak eta gure, errialdeko bertsolarien aidetasunak.

Zillegi bekit azken aldiz nere burua aitatzea «Elogio Razonado del Poema Euskaldunak» (G. Enciclopedia Vasca Bilbao, Tomo II) MARTIN FIERRO'ren aapaldi au azaldu nuanean:

«Se tiró al suelo al dentrar.
Le dió un empellón a un vasco
y me alargó un medio frasco
diciendo: !Beba cuñado!

«EUSKALDUNAK» osorik ulertzen ez dutenei esan bear zaie MARTIN FIERRO'ren erdera ere ez dutela oraingo arjentinarrek errez aditzen. Jakiña da MIO CID poemaz ondo jabetzeko Menendez y Pidal'ek oar anitz erantsi bear izan dizkiola. Ez dezagun aantzi antziñako poema oriek kantuz adieraztekoak dirala gein bat.

Zorionekoak beren olerkari ta idazleak biotz zabalez goratzen dituzten erriak! Gora bai! eta oles! MARTIN FIERRO'ren egille izan zan José Hernández olerkari arjentinarrari!

1972'gngo Azillean an izango gaituzu euskaldunok ere gure MATXIN BURDIN eskeiñiaz Txomin Jakakortejarena bertsolariaren goi-arnasari esker.

Baiñan, zoritxarrekoak, bekaizkeri, ez jakin ta griña makurrez beren olerkariak goresten ez dituzten erriak!

Ez al da iñoiz au gertatzen gure artean?

ANTONIO M.ª LABAYEN

MATXIN ITXASOAN

Gizon au milla laureun da larogetamaika edo amabian jaio zan. Gizon aundi nai txikiak jaioteko toki egokiak edonun dagoz. Gure gizon au beserrian agertuko zan munduko argira. Amabostgarren gizaldian jaio ta amaseigarrenean bizi izatea egokitu jakon baserri mutil areri. Bere izenez ta guraso abizenez Martin Trobika zan. Gaur, aren izenez deitzen jake Martin'en etxe ta auzoereari = Trobika etxea ta Trobika auzoerea.

Euskalduna, menderen mendetan, ibiltari zalea izan da. Itxasoak eta urriñak ez dau ikaratu. Baserri bidea baiño geiago ezagutu ez arren be, Ameriketa ta Indietako bazterrak topetako adorea izan eban. Martin Trobika'k be, gazterik, bere sorterritik urten eban, zori barri billa; mentura zalea zan noski.

Amaseigarren gizaldian, gizon legez, aldi artako giroan sartuta bizi izan zan Matxin. Euskalerria ez eban ikusi, iraizean baiño geiagorik. Bere erriak ez eutson biotz barrenean ikutu aundirik egin. Beraz, norbere sorlekua, ez dakigu, zenbatgarren tokian eukan bere gizontasunean. Egiz, penagarria da, urriñean goragarria izan zan gizona, norbere erriaren goratzaille, arduraz, izan bear eza.

Alderdi orretatik, guk be ezin dogu ezer esan, ezin goratu gure aurretiko Martin Trobika. Egiz, gizona goratzeko biderik egokiena, lenengo, norbere etxea maitatu ta aren serbitzaille izatea da. Esakerak diñoanez: maitasuna norberegandik asi ta inguruko guztiengana edatu bear dau. Matxin'ek gauza aundiak egin zituan, an urriñean, baiña etxean ez euskun itzi Euskalerriaren aldezko lorratzik.

Naita, uts au aurkitzen ba'dogu gizon aren bizitzan, mungiarren garra ta odola, beraz euskaldunena, agertu zituan Italia'ko itxaso ta lurrean. An, egiz, agertu eban euskalduna nor dan gizontasunez, adorez ta azken orduan, guztien gaiñetik Jainko siñismenez. Emen, ezer itzi ez ba'euskun gure erriaren alde, aldi artako gisara, an, agertu eban gure nortasuna zein dan osoan.

Une ontan, ta emen, agertu bear dot, Matxiñe tzaz gure artean dogun eretxi oker bat. Mingarria litzake anaiaren utsa, baiña pozgarria da anaiaren gizontasuna. Ainbatetan asmau dot neure inguruan, Matxin ezpaiko gizona edo itxaslapur izan zalakoa. Matxin'en jokabidea zerbait ezagutzeko erea izan dot eta mungiar onek, gazterik, artu eban bidea artu ondoren, gizontasuna erakutsi eban gizonen aurrean.

Gogo mentura zalea eban noski, ta baserria itzirik, gudaroste saillera jo eban aldi artako giroak eraginda. Gudaletxean oiña sartu eban ezkero, ango erara bizi bear eban ta bere almen ta gizatasuna, ondo, agertu zituan, leialki jokatuagaz. Bere balio ta jokabideagaz aginpideak artu zitun Kaisarraren gudarostean ta Italia'ko itxasoetan ikusiko dogu euskaldun mutillen buruzagi egiñik.

Prebesa'ko itxas ertzean eldu jakon lenengo titan burrukea. Kristiñauen aldetik Andrea Doria zan itxasoko gudontzi guztien buru, beste aldetik Barbarrojas izugarria. Biak bata-bestearen bildurrez. Baiña bildurtiago zanak iges egin eban gudontzi geienekaz. Ta Andrea Doria'k alde egikeran, Barbarrojas'ek, an geratu ziran bost gudontziak astindu zituan. Bi urpera joan ziran, bik lerretan iges egin eben, eurenak artuta; ta azkenez bat geratu zan etsaiaren aurrez aurre, Matxin buru ebala.

Matxin, gudontzi bakar ta bere taldeakin alde batetik, ta Barbarrojas millak eta millak gizonekin bestetik, aurrez aurre aurkitu dira. Oraintxe negurtuko ditue euren adore ta indarrak munduko itxaslapur izugarriak eta betiko erraldoi arrigarri eginda geratuko dan euskaldun gizon, mungiar seme kementsu Matxin'ek.

Euskaldunari gudontzia inguratu dautse alderdi guztietatik, ta asi da burdiña burruka. Batak eta besteak, gogor, al ebena egiten eben. Artu ta emon, bientzako egoan txibitea. Matxin'en adoreak gudontzi bi urperatu eutsezan etsaiari ta eundezka gizonak, parra parra, betirako ondatu. Gizon aren adoreagaz Barbarrojas arritu zan ta bake gizona bialdu eutson. Arrigarria! Gudontzi bakar artako buruari bakea eskatzen dautso: Turkar nagusiagana burua makurtuz, ta orren ordez turkarren gudarostean buruzagitza eder bat.

Au da gizona negurtzea, bai burdiñaz, ta bai, munduko, goratasunez. A zan Matxin'en ordua! gizontasuna bertan bera itzi, edota euskaldun mungiar erraldoi illezkorra egiñik, geratzea. Matxin'ek ustelkeririk ez eban onartu; burrukak aurrera jarraitu eban, naikuak egin arte, ta indarrak gitxitu jakezanean, etsaien erpetatik iges, egitea lortu eban. Matxin gizaundi egiñik geratu zan.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Olerti-Eguna Larrea'n

Euskal olerki ta bertso-arloak makillakada politak artu ditu azken urteotan. Ez dira tresna onak, agiri danez, ta aurrean erabilliak ditugu, atseden barik.

Alan be, emen Larrea'n, antxiña samarreko oiturari jarriatuaz, aurten be, bai, Olerti eguna ospatuko dogu. Noiz? Kristo Erregearen egunean, au da, azillaren 26'an. Kontuan euki: ez urrillaren azkenerantza, azillaren azkenean baiño. Eleizeak, bada, Kristo Erregearen jaia aldatu egin dau.

Poesi-sariketa onela:

I.—Olerki liriku bat: edozein gai ta luzean egiña: 1.000 pezeta.

II.—Poema bat, gure edestiari buruzkoa, obeto: 500 pezeta.

III.—Bertso-sail txikia. Amaramabi lan diferentiak, lau-bost aapaldi bakoitzak: 500 pezeta.

Urrillaren 31'rako bialdu lanak.

Lanak onela bialtzen dira: a) Makiñaz edo eskuz idatzita; b) Lan bakotxaren buru-buruan, zein gairako dan adierazoko dauan zenbakia edo izenburua jarri; d) Poesiaren edo sorta-buruan ez ipiñi egillearen izenik; e) itz berezi batzuk jarri ezaugarritzat, eta ondoren, estalki txiki baten barruan, egillearen izen-abizen eta zuzenbidea daukazan txarteltxo bat sartu; estalki au itxita, lanarekin batera, aundiago baten barruan bialdu.

Maikoak, beti bezela, N. Etxaniz, E. Erkiaga ta A. Onaindia.

O.

AGUR

III URTEA
59 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - URRILLA - 28

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

EZ IÑOR IL

Gaur iñoz baiño geiago, buruz beintzat, gizonari itzaltasuna jako. Onetan aurrerapenak izan dira eta poztu geintekez. Izan be, alkar maitetasunera eldu baiño len, azkatasuna ta itzaltasuna zor dautsaguz alkarrari.

Gizonari zor datsagun itzaltasun au, bere gauzetatik asita zor dautsagu.

Itzaltasuna bere ondasunai. **Ezin ukatu gure gizarteak egin dauan ondasunen banantzea zuzengea ta okerra danik eta onetan asko aurreratu bearrean gagozala esan bear. Baiña ardura bizi au gizonen biotzetan sartu da, eta onetarako burruka beroan dabil gizona. Bardintasun- argiak laster argi egingo al dausku, ludiko ondasunen banantze bidezko bat sorrerazoteko ta gose diranai janari egokia emoteko.**

Itzaltasuna bere izen onari. **Gaurko gizona azterkari biurtu jaku, batez be gizartean leku berezi bat daben gizonai begira, baiña ez bere etxe-bizikerea itzalez begiratu barik. Onetarako, bear ba'da, ausartasun eta azkatasun geiago bear leiteke, gizarteko arazoak argi ta garbi erabiltea nai ba'dogu. Eta geure artean be txarto egiña aztertzeko bildurrik ez dogu iñoz bear. Non edo zetan agertzen da, orduan, itzaltasun ori? Beintzat, guzurrezko salakuntzeari iñoz baiño bildur eta gorroto geiago dautsagu. Ba dira gure artean salatzailleak, zori txarrez, baiña gure Erriak, iñoz baiño gitxiago, ez ditu onartzen. Bakotxaren izen onari itzaltasuna dautsagu.**

Itzaltasuna iñoren gorputzari. **Oraintsukoak dira, oindiño, zigor lez gorputzatalak kentzen ziran aldiak. Gogoratu Angola edo beste edozein kolonia. Zelako gorrotoa jaken gaur oiñazeai ta oiñazeemoilleai! Ba dira, orregaitiño, oiñazeemoilleak, benetako gizadiaren arerioak!**

* * *

Baiña gizonak, bere ondasun guztiak baiño, bere bizia maiteago dau, eta biziari guk itzaltasunik aundiena zor dautsagu.

Eta ezin dogu lortu gizonak alkar il barik bizitea.

Epaikarien epaipenak dirala-ta, gizona iltea ontzat artu dogu. Gaur asi da gai oneri buruz be biurtze bat, eta asko dira zigor ori kentzea eskatu daben laterriak, baita legez baietza emon dabenak be.

Gudetan, gaur be, millak gizonak ilten dira. Gudeari gorrotoa dautsagu, baiña ezin dogu oitura kaltegarri ori gure artetik kendu.

Lana bera, ain bearrezko dogun ondasun-iturria, zenbatetan gure anaientzat eriotzearen iturri biurtzen dan! Gizon gorrotagarrientzat obea litzaken eriotzea anai langille zintzoakana eltzen da.


Eta ez daiguzan aiztu kamiño-bazterretan alkar-joteak egiten dabezan eriotza tamalgarriak. Zenbat mille anai!

* * *

Eriotzarik tamalgarrienak gizonak eskuz alkarrari damotsozanak dira.

Edo burrukak diranean, norberaren burua zaintzearren izan dala; edo besteai bildurra sartzeko izan dala; edo gizartean bearrezko dan bakea lortzeko dala; edo norberaren edo aberriaren eskubideak zaintzeko dala...; gazte adoretsuak edo erri-zain arduratuak ba joakuz. Banaka batzuk ba litzakez, tamalgarria litzake baiña, au bai samintasuna, bide orreik euren mailladi bildurgarria dabe, ez dakigu bide orrek noraiño eroango gaituan; ez dakigu noiz, bakotxari bere errazoia emon eta bakean biziteko bideak artuko doguzan. Zuzentasunez bizi izan ezkero, beintzat, gurari bizi bat daukagu gizarte osoarentzat eta gure Erriarentzat: EZ IÑOR IL.

AGUR



Sagartzatzu'tar Joseba il yaku; ez zaar ez ume: gizon egiña!

GIZARTEA GIZONARENTZAT

SAGARTZATZU (G. B.) gure adizkide miñaren azkenai bezela agertzen degu lan au, zenbaki ontarako biali ziguna.

Gizonaren azkatasuna, ta onek berekin dituan mugak, Egilleak eman dizkigun gauza ederrenak ta zoragarrienak diralarik, arriskuz eta begirunez betetako arazoak dira. Azkatasunak, egingarri askoren artean aukeratzeko eskubidea ematen digu, eta dakigunez, eskubide au, ez digu ez itxutasunak ezta senak ere eskeintzen.

Abereak eak, jateko ba-dakite aukeratzen; bestalde, otz edo bero egiten duan lur-aldea ere, bereizten dute, ez arrazoiak bultzata, senaren edo ezagueraren legeak aginduta baizik. Gizakiak ostera, une batetik urrengora aukeratzen ari gera, ta zertan ari geran konturatzen gerala, gaiñera.

Dalako baldintza onek, beste bizidun guzietatik gora, alegia, beste mailla batera jasotzen gaitu. Eta bat-batean zama aundi ta erantzukizun estua ezarri: gure egite guzien erantzukizuna. Gure bizitzako jokabidea zer eratako izan dan, Jaungoikoaren, gizonen eta datorkigun belaunaldikoen aurrean, erantzukizun latza.

Azkatasunik ez ba'litz, erantzun bearrik ere ez gendukake: ez onik, ez gaiztorik; ez pekataririk, ez santurik; ez sariri, ez zigorrik; ez Zerurik, ezta inpernurik ere. Bear ba'da, azkatasunik gabeko gizakia, naspildu ta korapillatutako tresna aberats eta indartsua izango litzake, baiña itxua ta basatia. Orregaitik, azkatasunaren etsaiak, gizonari azkatasun ori kenduaz, gizonok dugun berezitasunik ederrena ta maitagarrienarik gabe uzten gaitu.

Gizon bakoitzaren, baita gizartearen eta errien azkatasuna, gure artean ditugu. Baiña errien azkatasunak, gizonaren azkatasuna zaindu, indartu ta iraun-arazitzeko izan bear.

Zertako da ludi guzigandik azke izatea erri bat, bertako agintariak, erria serbitu nai ezik, gizonok dugun gauzarik ederrena suntzituaz, zapaltzen saiatzen ba'dira? Eta gaur-egun, zenbat arazo dauzkagun azkatasuna dala-ta!

Errien eta laterrien aberastasuna ta berezitasunaren ugaritasuna, azkatasunetik datozte. Doai au gabe, lore mota bakar bat duan lore-tokiaren antza du. Nolako alaitasuna nabaitzen duan batek, lore aunitz eta margo ugari dituan lorategia ikustean!

Gizona, erriak bezela, ez da bakarrik bizi, ez gera bakarka bizitzeko egiñak. Asi sendiaren altzotik eta munduko gizarteraiño, alkartze bat osatzen dugu.

Azkatasuna ez da mugarik gabea, ez Jainkoaren aurrean, ezta gizonaren aurrean ere. Bakoitzaren ezkatasuna, lagun-urkoaren azkatasuna asten dan une berean amaitzen da; ez geiago ta ez gutxiago.

Jakituri au ez da idazti batzuk irakurtzearekin ikasten, urteak erakusten duanarekin baizik. Eta gizarte ta errien arazoak diranean, agian, urteak eta gizaldiak bearko dira. Demokrazia, erlijioa bezela elburu bat da; nai bat: elburu au lortzeko, eguneroko lana, izerdia ta eramankizun mingots asko jasa bear. Ez bai-da beste eskolarik, norberak biziaz ikastea baiño.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Agur Joseba!

—Kaixo Josu!

—Nor da?

—Joxe nok, Donosti'tik eta berri txar bat eman bear diat...

—Zer?

—Joseba Sagartzatzu il dek.

Oiñeztarriak jota bezela, kiskalduta, arrituta geratu nintzan... gero, benetako «berri txar» aren zertzeladak; noiz, nola, nun eta abar...

Sagartzatzu'tar Joseba il da! AGUR'en idaz-laguntzan asi zanetik ia urte bete garrenean ezagutu nuen, buruz-buru beintzat, Elgeta'ko batzarrean. Begiak ei dira gizon bakoitzaren barru-erakuslerik onenak, eta Joseba'ren begirakadeak, lenengo ikustalditik irabazi nindun. Alkar ezagutuaz batera adiskide egin giñan; adiskide eta iritzietan ere kide; lengoak baiño negargarriago diran anaiarteko burruka oneitan... kide!

Idaz-lanetan agirian jartzen zuana, bere Eleizkizunetan entzun gendun: Joseba gizona zala!: Jainko zalea, siñismen aurrerakoi zalea, epelkerien ukatzaillea, gizarte bardinduaren alde, euskerearen eta ikastolen laguntzaille zintzo ta sendoa... itz bitan esateko: errizale amorratua. Gaur, kezkartean eta zalantzean ibilli ba'dabiltz, garaille aterako diran iritzi jatorren jarraitzaillea.

Dagonillean, Zarautz'en alkartu giñan azkenengo aldiz, beste lagun batzuekin batera. An onartutako asmoak aurrera eroateko zeu izan ziñan «alkartutzaille» edo dana dalakotzat aukeratua... baiña, orain, zure utsunea bete bear dogu... Nork? Nola?

Giza-legeari ta erriari zor dautsegun erantzunak eskatzen dauan bezela: guztion laguntza izango dauan ordezkari bat izendatuaz. Ez da gauza erreza izango, Urola bailladan, Gipuzkoa'n eta Euskal-Erri osoan izan dan gizon langilleenetako baten utsunea betetzea... baiña, zure Eleizkizunean, onelako agindu antzeko zerbait ezarri geuntsan geure burueri... eta beteko dogu, zure oroigarriz eta zuk ain maite zendun euskera betikoa sendatzeko!

Zestu'ko erri politean bildu giñan, zure etxekoen inguruan, ainbat adiskide ta lagun, danak ezin; alegia, astegun izatea ta ordua ez ziran danontzat egoki. Eleizkizunen ondoren, kale estutik zear, Ertxin mendipeko illerrira dijoan aldapa txikian gora, oin-otsak, arnasestukak ta negar-zotiñak entzun nenduzan nere inguruan. Orrenbeste oiñazeren artean, Joseba, txinparta itxaropentsua bezela, zure aurpegiaren azken irudia etorren nere begietara.

Nere ogibideak eragiñik, ainbat olako zoritxarrezko neke-aldiak ikustera eroana izan naiz. Ume, gazte ta zar askoren eriotzaren testigu ta ziñatzaille izan naiz, baiña siñestu egidazue adizkideok! gure Joseba'ren aurpegiak, illobian eukan irriparre a lakorik ez dot iñoiz ikusi. Siñesten dogunontzat eta bere kutunentzat, gauza ederra orrenbeste oiñazeren artean: betiko atsedenean egoan zalantzarik gabe, eta ez naiz olerkigintzan asi, sentitzen nuena azaltzen baiño.

Bear ba'da, or goian, ain maite zenduen AGUR'en ordezkaritza bat osotuko dozue, zuk, Gotzon'ek, Maortua'k, Arrieta'k eta beste batzuk. Zuen idazlan mamitsurik ez dogu eskuratuko, baiña bai zuen goi-laguntza, zuen-zuenak izan ziran elburuak guri lortu arazteko: siñesmena eta errizaletasuna euskarri daben askatasunean eta bardintasunean, gizarte barri bat lortzea. Ona emen zuek gure biotzetan erein zenduen azia... lur mardul eta ernekoiaren billa.

Erbesteko aize orreik ekarri dauskuen ekaitzaren ondoren, errizaletasun utsezko azi ori, zergaitik ez da ba erneko gure gazteen biotzetan? Dudarik gabe, bai!

Agur, Joseba. Atsekabez beterik utzi dozuz zure maiteak, baiña gogoz sendoak azi zenduzalako, Jainkoaren naia onartzen jakin dabe. Zer esango eureri? Zure emazte onari lagunduaz, seme-alaba maitaleak izanik, zure bideari jarraitu dagiela; batez ere, zeureentzat zeuk nai izan zendun guztia bete daitela! Ta zuk Santi ta beste Sagartzatzutarrok, orain arte bezela, Zestu'ko errizaletasunaren oiñarri ta eredu sendoak izan zaitezela.

AGUR'ekoen izenean besarkadarik beroena zuentzat, eta zuen aita maiteari, garrazika, eskari biotzkor bat: Lagundu zure umetxoeri, langundu AGUR'i, lagundu ekintzailleeri, lagundu zure Erria'ri.

Beti bezela, agur, Joseba, ta gero arte!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

EGI-ZALE

Euskaltzaleok darabilzkigun eztabaida guzietan, EGIA izan bear degu elkarren lokarririk gogorrena. Borondate ona, Gabon-Gabean aingeruak abestu zuten ura nagusi ikusi nai genuke; Euskalerriko arazo ta iritzietan nagusi.

* * *

Iñor gazteei laguntzen ari izan ba'da urte larri auetan, ni izan naiz aurrenetakoa. Guziak ixillik bildurrez lotuta zeudela, an argitaldu nituan KANTA-KANTARI, abesti sorta eta IRULEAREN NEGARRA ta abar iñori artarako baimenik eskatu gabe.

Gero gazteak geureganatu bear genituala-ta JARRAI antzerki taldeari laguntzen, aurrena izan nintzan. Antzerki, irrati ta idazlanez, lagundu nion talde jator ari. Orduan ain jator eta lagun genituan aiekin ez degu asarrerik izan iñoiz ere, baiña urteak aurrera ta gure artean sortu dute egundoko nastea gure gaztedia sakabanatuaz.

* * *

Onela beti agurtu izan ditut lagunkiro ikusi izan ditudan guzietan. Gerora, marxista ta leninista dirala aitortzen asi zaizkigun ezkero, ezin genezakean lagun-arte artan iraun. Apaiz geran aldetik, sotana kendu edo Elizaren seme agertzea zegokidan. Ezin, ba, zenbait lan onartu. Ala ere, amaika aldiz lagundu diet euskera aldeko lanetan.

* * *

Nere KANTA-KANTARI ta LUR BERRI BILLA liburuetako abesti ta bertsoekin, ederki baliatu dira asko; neri xentimorik eman gabe ta eztegu iñor auzitara eraman.

Onela kontuak, gazte batek bertso batzuek eskatu zizkidan bere kantatarako. Pozik eman nizkion. Onek Donosti'ko disko-ateratzaille bati erakutsi zizkion eta emen etorri zait bere diskoa eskeintzera. Ta orratx zer egin didan neronek ainbeste aldiz lagundu nion Disko-Etxe ortako arduradun danak:

Diskoa poliki dago, baiña nere letra orri zorioneko «H» ditxosoa ezarri dio. Onela, letra ura ikusten duanari, ni «H»ren aldekoa naizela siñistu-araziko dio. Ta itxuragabekeri ori eginda gero, patxaran saltzeko jarri du disko ori.

* * *

Ez al-da min artzekoa, onelako begirapenik-eza, laguntzat beti izan dedan baten jokaera au?... Ni len bezin lagun jokatzeko asmotan gelditu naiz; baiña aurrena EGIA bere lekuan jartzea dagokit, eta egia au da:

«H» galgarri ori, euskeraren kalte aundirako datorrela siñisten dedala.

NI EZ NAIZ, BERAZ, «H»ren ALDEKOA.

Nerekiko, ori euskaldun guzioi sartu naia, erdeldun guziak «Andaluz»en eran itzegiten jarri nai izatea bezin burugabekeri aundia da. Eta gaiñera euskera galtzori aundian jartzea da.

Demokratak al-gera?... Orduan utzi euskera amarretik bederatzik itzegiten duten bezela; ta ez beartu beste amarretik bederatziok ain gutxi diran euskaldunen eran itzegitera.

Azkenengo itza, erriak du; baiña aurrena jakin dezala garbi zeintzuk diran «H» orren aldekoak; eta zeintzuk geran «H» orren kontrakoak. Joko garbia pelotan eta itzetan eta EGIA denen aurretik.

ETXANIZ'TAR NEMESIO

Euskera eztabaidan

Ez nun uste gure ain agurgarri zaigun BASARRI'k idatzitako lana iñolaz irakurriko gendunik. Alegia, dio berak, nola batu ziran, emen Donosti'n, «Zeruko-Argia»ko idazlariak. Alkar ezagutzeko ta bien bitartez ezta-baidak alkarri astindu. Ezta-baida oiek, jakiña, dalako oraingo «euskeranto» orretzaz itz egin zuten.

BASARRI'k dionez, idazlari asko ez ezagunak beretzat. Ez da arritzekoa, urteak aurrera dijoazten bezela, gaztedi berriak ere ikasten du euskeraz idazten, naizta «berri» oiek ez izan gure gogozko.

Basarri jaunak bere «Nere Bordatxotik» ortan esaten ditunak, ze nolako asmoak artu aurrerantz eta abar. Z-Argia bidez, naizta asmo on oiek oraingoz urrun arkitu, gerokotan gelditzen diran usteak ditu.

Ez ote da orain arrigarri, ainbeste bide latz igaro ondoren erabaki berriak artzea? Noiz beinka irakurtzen det nik Argia, ta bakoitzean esaten det nerekiko... «Azkenengo aldiz izango det...» Orri osoak idazlan batez beteak eta aspergarri. Ori naiko ez dala, naspildua euskera. Bati baiñon geiagori entzun diet, alegia lengo antzik ez dakarrela ta AGUR asterokoaren billa dijoaztela. Onek lengo gure Euskeran idazten dualako. Dana dala, irakurri Basarri'k diona bere «Nere Bordatxotik» eguneroko La Voz'en idazten duna... «Batzuk H-zale purrukatuak dira, besteok begien aurrean bixtan ikusi nai ez degunak...»

Danetik daude iritziak. Batzuentzat gogozko dira, bestientzat mingarri. Dakigun egi aundia ta mardula au da: ontan ezin leikela jarrai, bi eretan idazten, Euskerari kalte aundiak egiten ari geralako. Zeiñek galduko du burruka au? EUSKERA'k, beste iñortxok ez.

Berriro dio Basarri'k... «Milla bider esanak gera, ta bijoa bein da berriro. Jorratu dezala bakoitzak bere baratza alduen modurik onenean, naste borraste onek irauten dien artean. Denborakin urak etorriko dira beren bidera, ta orduan konturatuko gera uskeri batzuen aldera zenbat xixtrinkeri izan dan gure artean...»

Ze itz eder eta egokiak! Ze egi mardulak! Euskerak bai ote batasunik? Diot nik...

Berriro dio... «Ziur gaude igandeko billerak bere frutua emango duela. Z-Argia luzaro baiñon len (bere denbora bearko du noski) beste tankera batean azalduko dala...

Nik diot: orratiokan, Argia'koak atzera egitekotan ote dira? Naiko zalaparta agertu dute beintzat, orain batuketa orretan itz egiteko, ze nolatan gauzak beren lekuan ipiñi ta Euskera ikusi nola batu...

Batek baiñon geiagok esan dit, bi alderdietakoak gogor ari dirala idazten euskeraz, ta ori izkuntzaren onerako dala. Bai, izan leike ori egia. Baiñan, nik dakiten egia au da, ontan ezin leikela jarrai bi eretara idazten, ta gutxiago geren idazlanetan alkarri gaizki esaten. Irakurri zer dion Andoni Labayen jaunak bere azkenengo liburuan. Bertan ikusiko dute egi aundi ta mardula. Artu, geroz, bakoitzak beren erabakiak eta oldoztu gerokoak.

Onela bukatzen du gure BASARRI aundiak... «Alkarrenganako begiramenik galtzen eztegun artean: LAU UMEKERIEN truke odolak irakinda jartzen ez geran artean, itxaropen aundiak izan genezake...»

Dio berriz... «Askoz obea izango litzake (nola ez) danok bide batetik joko ba'gendu ta arau berdiñetara errendituko ba'giña. Au eziñekoa da gaurkoz. PIKOAK ere giroa bear izaten dute ondo elduko ba'dira. Gure izkuntzari etorriko zaiola uste degu oraindik premizko zaion giroa. Alik eta azkarren izan dedilla guztion onerako...»

Orra or argi ta garbi zer idazten dun BASARRI jatorrak. Guk aintzat artu besterik ez degu. Nere aldetik, zer esan geiago? Guzia esana bait-dago...

E. OZKIN

GURE IZKUNTZEA

Euskaldunak, geienok dakigun lez, gure barruan ta sustrai zarretan, erri askok ez dauken gurasondore aberats ta garbia daukagu: gure izkuntzea.

Izkuntz au gure biziaren biotza ta gure arnasaren auspoa da; au barik ezin dogu bizi, ta ez dogu merezi bizi izaterik; galtzen ba'dogu oba danok iltea.

Eragozketak aundiak dira, prensa, irrati, T. V. eta abar, baiña gure nortasuna or sartzen da. Konturatu egin bear gara zer garean ta ez ikeretu batzuk bezela, beste izkuntz baten abarren antzera, apalez eta negarrez eskatan, zetan joan ez daukagu. Guk, geurea daukagu, lenengo geureagaz eta gero, gure jakintasuna geiagotuteko, beste izkuntz baten edertasuna ikasi nai ba'dogu, ondo dagola uste dot.

Nere errian, tamalez, ba-dago olango zeozertxo; aiztu egin iaku zein dan gure izkuntzea ta beste baten atzean goaz. Batez be sorkatz au neskatilla ta mutill gaztetxoen artean ikusten dot, arrigarria ta tamaltsua da; geuk, gure artean aterabidea aurkitu bear dogu:

Ikastola bat bear dogu! gure umeentzat, gure gazteentzat eta bear ba'da, gure zarrentzat, asko eskatea ez leukela izan bear, erri baten betiko eskubidea bere izkuntzea jabotea da-ta.

Ikusi dagigun gure umeak eta gazteak zelan itz egiten daben! Aurrerabide bat aurkitu dagigun! Berandu izan baiño len. Ikastola bat izango litzateke. Igorre'ko gazteak! Gorde dagigun gure euskerea, munduko izkuntzarik zarrena; demokraziaren gordelaria, eta birao bako izkuntz garbia.

IGORRE'KO IRRINTZI

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 18
21-15-07 urrt. **BILBAO-5**

ABANDO'KO ARRANOA

Ni mutiko nintzala leenengo Jaunartzea egiterako, izan zituan aldaketa batzuk kristau-ikasbideak. Baiña baita kristau-ikasbide zaarra ere, ezagutu nuan. Neurriz guk ikasi gendun barria baiño txikiagoa zan, eta euskera aldetik zalantzarik gabe guk ikasi genduana askotaz obeagoa. Ordungo: «poderosoa, magnificoa, Creadorea ta Redentorea, amatzen, divina, majestades, ofenditus, proposito, firme, ocasio, e. a. e. a.»

1865'gn Ilbeltzaren 26'an jaio zan gizonari eskarrak. Gizatasuna, eusko-gizaki izate ta izkuntza galtzen ari ziralako; onek dazkarren ondorioak ikusirik, azterkatu ta zuzendu zituan; bestela toki ederrean geunden! Maiz entzun eta irakurri dut: alegia, ez kondairarik eta ezta elertirik ere, ez daukagula iñola ulertzerik, Arana-Goiri'tar Xabin ezagutu gabe.

Bai Villasante'k, Mitxelena ta beste euskaralogo aunitzek aitortu bearra dute, euskera ta euskal-nortasuna ark esnatu zituala. Arana'ren garaian zer eta nola aurkitzen zan gure izkuntza, Maixu onek, berritu ta berpiztu zuan; eta ark erakutsia izan da, guk eta besteek erabilli duguna.


Iñoiz baiño geiago nabarmendu da aspaldi ontan, batasuna beiñere baiño geiago irrikatzen dugula, zor zaion begirunea ukatuaz. Ark akatsak izango zituala? Ludian aurkitu al diteke akatsik gabeko gizonik? Garbi zalea izan zala? aldi arek izango zuan erretza zorrotz pasatuaz txukuntzeko premia. Abenda, erria ta izkuntzak zer ikusi aundia dutela-eta, arazo au, sakondu zuan; eta uxatu bearrezko itzak kendu, beste itz berri ta idazteko era aldaturik, euskerari ta erriari arnas berritu bat eman.

Orain gaiñean daukagun erasoldia danok dakigu izugarria dala. Izan ere, batzuk biurri ta berritsuak eta lilluratzailleak dira; eta euskeraren batasuna itzetik-ortzera darabilkite, ez dakigu zerk eraginda dabiltzan, bear ez dana erakutsiaz, euskera erabat nastutzen.

Gizatasuna, eusko-gizatasuna itxartu bear dugu; bizitzan eta egiteetan eusko-kontzientziarekin jokatu, bestela, nasketa onekin galbidera goaz.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

24 ertilari euskaldunak euren biesti-banak eskeintzen deuskuez



BASTERRETXEA - serigrafía - IRAILA 1972

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

ederti

ARTEKALE, 14

DURANGO (BIZKAIA)

KONTU KONTARI

IKASPIDE EDERRA!

Euskal-aldizkari baten auxe irakurri dot:

«Abertzale hitza era askotara uler diteke. Guri, «abertzale» ez garela esaten daukutenek, era batera ulertzen dute hitz hori, eta guk bestera. Zenbait hoiek beren joeretan sartu nahi gaituzte, eta, hori ez lortzean, hasarretu egiten dira. Horrela, gure kontra iharduten dute. Guk, Euskal Herriak dituen problema modernoei erantzun nahi diegu; gaurko erantzun bat eman nahi diegu Euskal Herriari».

Abertzale itza era askotara uler ditekela? Batzuk batera ta besteak bestera? Ezta urrik emon be! Abertzaletasunak oiñarri bat bakarra dauko: Izan edo ez izan. Naiz gorri-gorri, naiz zuri-zuri, naiz belegi, naiz orlegi, naiz... gaztaiña. Izan edo ez izan! Izate ori biotz barru-barrutikoa baita. Ez daiteke aldatu.

«Guk, Euskal Herriak dituen problema modernoei erantzun nahi diegu».

Sabin'eri, Larrinaga'ko espetxean sartu ebenean, «parrafada» orren antzekoak esan eutsozan an aurkitu eban anarkista batek. Onek bai ekian, Sabin'ek biotzean irarrita eroan ikurra JAUNGOIKOA TA LAGI-ZARRA, zala. Beragaz eztabaidan asiaz, esan eutson arek: «Arazo 'añejoak' utzi ta 'modernoak' artu bear zirala».

Sabin'ek erantzun eutson: LAGI-ZARRA baiño gauza berriagorik etzala mundu onetan. LAGI-ZARRA ez dala idi-zarra, burdi-zarra; ezta abarka zarra be. LAGI-ZARRAK, auxe esan nai ebala: legeak egiteko eskubidea; naiz gaur, naiz biar, naiz etzi, Erri bati yagokozan lez: Gaur, gaurko lez eta etorkizunean, etorkizunari yagokon lez.

Erantzun argiagorik, bikaiñagorik, osoagorik ez egiken emon «problema modernoak» aipatzen dituan edozeiñeri. Erantzun ederra emon eutsen, LAGI-ZARRA abarka-zarra zala uste eben guztieri.

Ta... gaur be orretan ondiño? Jaunak, gauz orreik aspaldi argituta dagoz. Ez egizue maratillarik billatu! Arren! Orretariko maratillak pillatuta dauzkagu, joan diran 70 urtetan.

JAUNGOIKOATZAZ barriz, anarkisteari esan eutsozanak ene-ene! Ak emon eutsozan adibideak! Beko Jauna ta Goikoa maite dabienen ez bardintasuna ta... Jasaus! mutillak! zelako zegaitiak! Aste osoan jardun ziran gai orretzaz gogor! Anarkisteak Sabin'en gogoa irabazi nairik, eta Sabin'ek, bere gogaiak sendo ta zindo aldeztu ta azaldurik, bidera urten eutson gizon areri.

Orretzaz, astebeteko eztabaidea amaitu zanean, esan dagitsuetan zer jazo zan:

Larunbata eldu zanean, anarkisteak autorle bat eskatu eban. Illuntzean baita autortu ere. Igande goizeko meza-erdian, Jauna artu eban apal-apalik.

Eta ondoren, Sabin'eri, bere arrebeak, bitza dariola eruan eutson txoko late, esne-bero ta opil bigunarekin gozaldu eban anarkisteak.

ABELETXE

SISA - PERRETXIKOAK

Gure baso-mendietan arkitzen ditugun landare mota auek janari gozo izan ditezke, baiñan baita kategarri ta arriskoaundikoak ere.

Beraz, arretaz bildu bear dira ta sukaldean maniatu aurretik ondo aztertu. Sisa-perretxiko tartean naiz batzuek onak izan, banaka batzuek erdipurdiak ezik oso txarrak dituzute, pozoidunak eta jan ezkeroz pertsona iltzeraiño eragin dezaketenak.

Urtero ezbearrak gertatzen dira ta azkenik Billabona'ko famili batean jazotakoa benetan izan da negargarria. Etxeko nagusi Zapirain jaun ezagunaren eriotza (G. B.) ta perritxiko pozoiduna jan zuten senide guziak gaizki ibilliak dira, Jainkoari eskerrak gerora sendatu ba dira ere ta zorionez gaur osasuntsu etxera itzulirik. Medikuek lan ona egin dute baiñan ez dedilla berriz orrelakorik gerta.

Sisa-perretxikoak onak ala txarrak diran jakin eta nola aukeratu bear diran ezagutzeko liburu irudidunak ba-dituzute. Bat oso ederra Gizpuzkoa'ko Aurrezki Kutxa Probintzialak zabaldu duana Iñaki Linazasoro idazle argi ta bizkorrak osotutakoa.

Liburu eder ontan ez daude noski perretxiko mota guziak, baiñan bai gure basomendian ugarienak. Eta batik bat argi ta garbi adierazten du zeintzu dituzuten onak eta zeintzu pozoidun eta kaltegarri. Auen artean datoz ENTOLOMA LIVIDUM jakintsuen izenez eta erritarrek MALTZUR deritzatena. Itxura ona azal eta mamiz eta usaiez izanagatik erabat txar eta eriogarri dana. Ain oker! berori izan da Billabona'ko gertakizun negargarriaren errudun... Obeto esateko: ez jakiñak eta konfiantza geiegiak galtzen gaitu. Erne beraz urrengorako!

Ontarako egin da Urrillaren lenengoan Tolosa'n perretxiko mota guzietako batzaldi nagusia. Emen ikusi zitezken txukun bereziak sailka garbi jarrita ainbat mota: Onto beltz, onto zuri, kuleto, sasikuleto, gibel-urdin, galenperna, barrengogorri, piñu-perretxiku, sisa-ori, abar eta abar. Jendeak asko ikasten du onelako batzaldi aberats bat zeatz miatuaz.

Perretxiku biltzaille bikaiñenai sariak eman zaizkiote, ongi mereziak gaiñera. Eta gero sukalkintzan perretxiku oriek ondo maniatu ta mokaru gozoenak gertu zituztenentzat ere izan ziran sari ta esku-erakutsiak.

Zorionak ain ederki batzaldia eratzen jakin duten erriko agintari ta tolosar perretxiku-zaleoi! Jarrai aurrerantzean ere Tolosa'ko izena gai ontan mundu guzian omenez zabaltzen!

Auxen da au lan ona egitea!

ASPALDIKO

JUAN-JOXETXU

Zeu zara neure seme maitemaitia. Bakar-bakarrik zortzi urte txiki daukazuz. Baiña, nik, zutzet dauket dana. Zu zara ispillo garbi eta argixe. Nik nai neuke danok, euskaldun guztiok, zuek umiok daukazuen garbitxasune ta zintzotasune eukitxie.

Egunero, egun-egunero ikust'ot zure begirakun argixe, zure biotzeko takada alai ederra. Orduen, nik, ikusten dot EUSKAL-ERRIA' ren bizitasune zure gorputz poli eta garbixen.

Gaur, bixer eta beti, zu, Juanjoxetxu, izengo za nitzet Euskalerri odola. Zure begixetan ikusten ditxut gure zelai ederrak, zabalak; gure mendi jaikixek; gure piñari, pagadi dotoriok; gure atxak, zorrotz eta gatxak. Zure biotz txikixaren takadatxuetan gure errixaren izetie. Zure arnasa, gure bizitasune, gure aranasa.

Berbetan barriz, erreka txorkuek kantari, txori-musika soiñua, alai eta poza.

Juan-joxetxu, egunero ikusten zaitut. Ordutik ordure, minitxu-minitxu, landara ederra zelan datorren gorutz... Gaur, nere pentsamenture agertu die laiñu moltzo baltzak... Emendik urte battzuk, ez asko, umetik mutil egingo zara. Zure aragi garbixe, zure gorputz ederra, artuko'te dau gorrotuek? Orduko, gorrotu gosie asetuko'te da?...

Bakie, osasun ona opa otzuet gazte guztiori... Baiña zer izango da; bakie, osasune, ala metrailla ainkadie?...

Ez, Juan-josetxu, ez. BAKIE, JAUN GOIKUAN BAKIE...!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA
«MARKIÑA»

JAKINGARRIAK

KEBEDARRA

Ainbat eztabaida sortu ditu munduan tabakoak. Osasunarentzat kaltegarri dala; sakelarentzat zulo aundia. Zenbat eztabaida batez be senar-emazteen artean.

India'ko agintari batek erretze au ona zala iñoan, baita ona zergaitik:

1.—Asko erre ezkero, ats txarra jaurtiko ei dozue aotik eta txakurrik be etxatzue urreratuko ausi egiteko.
2.—Bularrak gexotuko jatzuez eta lotan be eztul-da-eztul egongo zarie ta lapurrak ez dira sartuko etxean itxarrik eta ernai zagozelakoan.
3.—Al dozuen guztia erreta, gazterik ilko zarie ta lenago ezagutuko dozue zeruko zoriona.

ITXURAK EGITEN

Adizkide batek neuri esana; irakatsi ona dauko neska gazte askorentzat eta esatera noa: Nire adiskidearen adiskidea bere emaztegeiari agur egiten egoan ta: «I —diñotso— itxaron egidak pizkat, eta batera joango gaittuk trenean». Eta, «CHESTER»a atera eban noviaren aurrean.

Gero, trenean, mutil, biok alkartuta, arek diño: «Erreko yoguk»-«Ondo jak» eta Ducados'ak atera zituan. Mutil gazte a langillea da, tabako merkeagoa erretzen dau egunero; egun bitan ez: eguenetan eta domeketan, eta orreitan be noviagaz dagoan bitartean bakarrik «Chester'ak».

Eta zenbatek eta zenbatek, gazte arek lez, orretan eta beste gauzetan! Zergaitik? Olantxe atzipetuten dabez neskak. Ez dirana egertu gura dabe, euren benetako giroa lotsagarria ba'litz lez. Ta gero, ezkontzen diranean negarrak. Au ez da gizonkiro jokatzea, au ez da gizon izatea.

Zintzotasunez jokatu bear da danarekin, baiña batez be emaztegeiarekin.

GOIRIA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK

Martiko Aldanabal TENDERIA, 3

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

AMURAKO ARRAIN-KALAK

Ba-ditugu amuko arrain-kalak inguru askotan, esate baterako, asi Ondarrabi ingurutik eta Galizi'ko alderarte. Baiña azke, «libre», amuagaz baiño izan ezik arrapatzekoan amu-arraiña, ez ditugu Billau'tik asi eta Lekaitio'ko Katalin Donea'ren aurrerartekoak baiño. Arrain-kala oneitan ezin du iñork amuekaz izan ezik arraiñik arrapatu (amu-arraiña edo lebatz-zaleen arraiña esan nai dot) iñoiz. Zergaitik ezin da iñoiz arrapatu? Debekatute daudelako. Nok debekatu, galazo dau? Itxas-agintaritza dutenak. Zergaitik? Geuk, bermiotarrok bere lekuan gure naigabetasuna agertu dogulako.

Au onela izanda be, iraillaren 30'ean eta arratsaldeko ordu bi lauren gutxiagotan, Gastelugatze'ko Jon Deunaren aurrean, ainbat lebatz-zale arraintzalek ikusi dogu «dandarrezko sareagaz lanean «Gure Ametsa» izeneko arrasteru andia, bere papoan izki zitun: S-S; eta zenbaki oneikxek: 12214... itxas-ontzi au, 60 brazararte sartu zan lanean. Atxetik mille bi t'erdi inguruan, gitxi gera-bera, bere dandarrezko sareakaz.

Gu, lebatz-zaleok urreratu giñala ikusirik, ontziko nagosiak bere menpeko langilleeri dandarrezko sarea jasoteko agindu eutsen. Bereala asi ziran sarea jasoten. Biaña arrapalada batean bezela. Zergaitik asi zen sarea jasoten eta arrapaladan edo aguro? Atxa zeukan aurrean ala? Ez, ez zeukan arek atxik aurrean, geu, itxas-ontzi txikietako lebatz-zaleok baiño. Guregaitik, lebatz-zale txikiokatik bakarrik asi ete zan sarea azkar jasoten? Ez det uste. Orduan zergaitik? Denekatutako edo galerozatako uretan lanean ari zala arrapatu gendulako. «Gure Ametsa»gaz burrukatzeko ez giñan egon gertute bear izan genduan bezela.

Aurtengo Bagillaren lenengo egunean (bermiotarrok etxean jaia ospatuten giñala) be, «Gure Ametsa» gure arrain-kalak zear ibilli zan lanean, baiña gu etxean egon arren ikusleak etzira palta eta oneik Armintza'ko arraintzaleak izan ziran. Oneik aurkeztu zirean arerio zitalaren aurrean, baiña arek sarea jaso gabe, eta Armintza'ko arraintzaleen garraxieri jaramonik egin barik (nik entzun nebanetik) sortalderantza arrain-kalak puskatzen edo apurtzen iraun zun, arraiñak lapurtzen. Onelaxe, Bagilleko bigarren eguna arrain gabeko egun naigabetsua izan zan.

Jazotakoak onelaxe diralarik garaitzak egingo dau itz, zigorraren ganian. Guk, arraintzaleok burrukarik ez degu nai, baizik pakea. Burrukakin irabazirik ez degu; pakeakin bai. Batzuk zigorrari bildurra darotse, beste batzuk, ez. Onexegaitik bildur bakoak maiz lapurtzen. Bildurdunak ez. Ez dut uste gauza gatxa danik bildur bakoari bildurra sartzen, jakintsua ez naiz baiña.

AZPEITIA'TAR GOTZON

Egiztatu egizu zerorrez

BYASS 96

diñoen aiñako garaitsua dala...



GONZALEZ BYASS

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

MATXITXAKO V

Edesti bideetatik

Guztiok dakigu Bermeo'ren izate bakarra eta berekoya itxasoa izan oidala, gaur ere orixe da eta aurrerantzean olantxe izango da.

Eta Edesti-bidez dakigu Bermeo izan dala Kantabria'ko kayetatik uririk ospetsu eta saldu-eroskai arazoetan urtenena, garrantzitsuena, eta beronen garaitasunik goralgarriena, batez ere, XV eta XVI eunkietan izan zala, arek-eta Bilbao'ren izatea geitu eta Bizkai-buru izatera eldu-arte.

Eta garai aretako gizaldietan Bermeo'ren ospe eta izena urriñetako, asauetako, itxas-errietan eta lur-barruetako urietan guztiz entzutetsua oizan zan. Aldi aretan, Kastilla'ko agintariak Bermeo'ko kaya euken aukeratuta euren ardau eder, artille zuri, gaimel edo orio garbi eta beste luremokai eta saleroskai gauzak atzerrietako itxas-errietara bidalduteko.

Ain garrantzi eta anditasun usain zabala eukan itxas-erri onek, ba, kai onetan batuten zirean bai Ipar-alde ta Ego-aldeko itxas-errietako untzirik eder eta andienak, bere AYEN-LEKOAK edo AYEN-TOKIAK dan-danak, untziz lotuakaz estalduta egoten zirean, Erri onetan alkartuten zirean aldi-aretako Salerosle ezagunenak, eukitsuenak eta kai onetatik urten eta kai onetara elduten zirean Saleroskai gauzarik egoki eta begikonak.

Eta gero, Ameriketa'ko lur-barriak aurkitu zireanean, Bermeo'ren ospe eta entzutea ondiñokarren aupada andiagoa, durundi entzungarrizkoagoa egin zan, eta lendik oroipen andiko kaya izan ba'zan, benetan orain, beronen eukitasun eta anditasunak guztiz geituak izan zirean.

Garai aretako eunki aberastuetan, benetan ospe izugarriaz loratu zan Bermeo, eta olantxe, eurak Prantzestarrak ere, gaur egunean, Torrontero deritxon auzotegi goi-aldeko txaidian edo kalian, ainbat Saleroskai Etxe eukezan, eta Txaidi edo kale orreri ROCHELA izena ezarri eutsoen, ondiñokarren Txaidi orren izena 1820' garren urteraiño iraun eban.

Baiña ainbat ospe eta ainbat aberastasunen zaratak laster ekarri ebezan Bermeo'ko urira samintasun garratzak, egun negargarriak. Beronen itxasoetan sarri jazoten zirean itxasekaitz gogorrak, uin-ikaragarriak eta itxasoetako arrisku izugarriak naiko ezpa ziran lez, oraingo Erriaberastasunaren oyu-zaratak, ingeru guztietako itxas-lapurrak berotu eta bekaikeriz beterik Bermeo'ko kayatako untzietan egoten zirean aberastasunak lapurretan egiteko amurrututa, burruka gogorrez etorten zirean.

Gau-illuntasunaren laguntasunagaz, itxas-lapurrok, sarritan kai eta erribarrura sartuten zirean, eta ilketak, zikinkeriak eta esan ere ezin leikezan txarkeriak egin-eta igeska egiten eben, erri guztia negar-baten lagata.

Egun garratzak, urte luze negargarritsuak, itzaltasuna toki danetan, burruka gorriak kai eta txaidietan, gentza edo bake bako egun samiñak, beti artega jagi eta naibako andiagoagaz oeratu, baster guztietan erriyetak eta alaru-otsak.

Eta Edestiaren orrialdiak diñosku: 1404'garren urtean, Italiatar Florentzia, aldi aretako uririk entzutetsuenako Albertini deritxon Etxekoak, Bermeo'ko kayan, euren eroskai-saldukai gauzak erbesteko kayatara erosteko, batez ere, ROCHELA uri andira, lau untzi luzeakaz bayeztu zireala, eta itxas-untzi ederrok, Salaroskai gauzakaz zamatute kayatik urten, besterik egin-barik, beingo baten itxas-lapurrak aurreratu yakezan eurak nai eben guztia egin eta untziakaz jaubetuta iges-egin ebela.

Lapurkeri eta txarkeri gora-berak, aldiaretan, Bermeo'ko uri eta kayetan, egunaro jazoten zirean, iñoiz ez zan geldi unerik, itxas-lapur ankerrak edonoiz aurkeztuten zirean euren malmuzkeriak egiten, eta aldirik estu eta larrienak 1404 eta 1405'garren urteak zirean, eta urte orreitan, amairu itxas-untzi andi gauzarik bearrenezkoekaz gonburuztuta, Bermeo'ko kayatik urten eta bereala, ainbat itxas-lapur inguratu ebezala, eta beti lez, lapurkeri, eriotz eta zikinkeri danak egin-eta iges egin ebela, eurakaz untzi guztiak eroanik.

Eta beste orren beste jazokun negargarri, Edestiak azalduten dauskuz, eta olantxe, 1596'garren urteko Irallaren lenengoan itxas-bare eta gauaro biguna zala, Bermeo'ko uria menperatu nairik itxas-lapurrak agertu zireala, eta Gaztelugatxe eta Izaro'ko Eleizatara sartu eta aurrian aurkitu eben gauzarik eder eta anditsuenak lapurretan egin eta Izaro'ko Eleizeari su-emon eutsiela, eta Bermeotarrak ikusirik ain kalte ikaragarriak egin ebezala itxas-lapurrok, danak bat-egin eta itxas-lapurrok zapalduteko bizkortu zirean, eta eupada baten burruka gorrian asi ziran, eta arin, Sollube mendi gaillurretik tuturutu zolia jota, Bizkargi eta Bizkai'ko mendi tontorretan durundi-laguntasuna entzunik, Bizkai'ko gaztedia, Ugarte'ko Gonzalo Ybañez jauna buru zala, egazkada baten Ogoño'ko mendi gurenetik Elantxobe, Ibarrangelu, Laida eta ingeruetako baster lekueak artuta, laster birrindu eta ezereztu zirean itxas-lapurrok, eta Ogoño eta Izaro bitarteko ur-sakonetan itxas-lapurron Untzi bat ondoratu zan, eta lapurrok bertan ito zirean.

Baita ere, oraintsuago, 1639'garren urteko, Dagonillaren 13'garrenean, Bermeo'ko kayatik urbil, eta Santoña-aldeko itxasoetaraiño irurogeta lau itxas-lapur untzi, gudarozte andi bat ba'litza lez, agertu ziran, eta bai arin ingeruetako erriakaz jaubetu ere, olantxe menperatu eben Portugalete, Castro Urdiales, Onton, Mioño, Laredo eta Santoña, Baiña itxas-lapurrok menperatuteko, beti lez, Bizkai'ko mendi gaillurretako tuturutuak ots-egin eben, eta Bizbaki'ko gazte gudaroztea beingo baten alkartu zan, Juan Etxaburu jauna buzu-zala, eta egun batetik bestera itxas-lapurrok iges egin eben, eta orduan ere Bermeotar seme zintzoak gogor jokatu eben, bai Gaztelugatxe'tik, Matxitxako, Tanpoi Negosi, Basterre eta Gaztelu'ko guda-suaga edo kañoi andiakaz, tunbada ots izugarriakaz, geure erria itxas-lapurroi bildurra sarturik, erria etsai eta itxas-lapurretatik alde-eragiñik, poztasuna eta alaitasuna ekarri eutsen.

(J. L., jarraituko da).

GAUBEKA ETA
DUO'TAR BITOR

MAÑU'N BARRIZ

Joan dan igandean, il onen 15'gnean, goizeko amaiketan eta Mañu'ko elizatxoan, Garitaonandia'tar Gotzon'en gogoaren alde, bigarren urteburuko Mezea izan gendun.

Udazkeneko eguzki dizdiratsua lagun, Sollube maldako bide ta bidezabalak jentez beterik ikusi genduzan. Gaztediz beterik egoan eleizea. Eleizkizun errikoi ederra benetan eta itzaldi mamintsua zure adiskide Karmelo'k egin euskuna.

Zer izan zendun zeure-zeurean, Gotzon, urte bi garrenean orrenbeste gazte an biltzeko? Zergaitik ete zara ain gure, edo gu ain zure; eredu, bide ta argi zaitugula, eta batez be, maite? Gizon gitxi ikusten doguz, zuk zendun berezko doai orren jabe: biotz zabaltasuna ta egizko Kristo'ren ordezkari izatea.

An izan giñanok ez dogu errez aztuko erri osoak egiten dakian otoia, ezta fedeak eraginda bildu giñanon egizko batasuna be; zuk beti gura izan zendun batasuna.

Eleiz ataditik bera begira, an inguru'ko baserri polit areik, zure magal pean, txitatxoak lez, bizitzara etozela gogoratzen genduan, baita, gure gizonik onenak badoazela ikusirik, erdi makaldu be gure aurrera joteko naia. Baiña, unetxo bateko makalaldia izan zan; an bertan alkarri esan geuntzan; jo ta su, Gotzon'en bidetik aurrera; zeuregaitik, zeuk egin gura izan zendulako, ta guretzat eta gure erriarentzat olaxe izan bear dabelako!

Datorren igandean, Urril onen 22'ganean, Urdulitz'en alkartuko gara barriro, ez zaitugu, ez, aztu, urdulitztarrak, mungitarrak, bermiotarrok... bizkaitarrok.

ARBAILLU'K


KATOLIKU EZKON-BANATUAK

Ipar-Ameriketan

Ogeta bi urte Jose ezkondu zala. Bere emazte ta lau alabak, Jose lez, elizako aundiak dira. Domekaro elizara doiaz eta eliz zeregiñetan aurrenengo agertzen dira. Seirak alkarregaz domeketan elizara joaten dira.

Baiña lau alabak, mezetan Jaunartzera joatean, Jose ta emaztea euren jarlekuetan geratzen dira, lotsatuta lez. Zergaitik?

Oingo emazte onegaz ezkondu aurretik, Jose, lenengo emazteagaz banandu zan. Bigarren emazte onegaz ezkondu zanean, Jose'k ezin Jauna artu. Bere bigarren emazteak b'ez. Jose lez, bost milloa katoliku aurkitzen dira Ipar-amerika'ko elizan.



Bost milloa oneitatik, askok, elizatik urtetzea edo elizara joateari iztea erabagi dabe. Beste askok eliz-legeari jaramonik egin barik, euren buruz Jauna artzen jarraitzea erabagi dabe. Bost milloa onein artetik geienak, ostera, eliz katolikoaren legeak zeatz eroan nai dituez, eta ez dira ausartzen Jauna artzen. Orregaitik, Jose'k bezela egiten debee: Elizara joan baiña Jauna artu ez. Bigarren maillako katolikotasunean irauten dabee.

Urteak joan urteak etorri, olan jarraitzeko, erlejiñotsu fanatikoa izan bear dau gizonak.

BANANDU EDO ANAI-ARREBEN ANTZERA BIZI BEARKO LEUKIELA DA ELIZA KATOLIKOAREN ERANTZUNA.

Beste bide bat Jose ta emaztearentzat, Jose'n lenagoko ezkontzea ezereztu edo anulatzea izango litzake. Erabagi onen bukaerak urteak bearko leukez eta sarritan diru asko ordaindu bear izaten da, baita ezkontza a jatorra izan ba'zan ezereztu eziña be.

II Batikano Batzar Nagusia ondoren, Ipar-amerika'ko eliz barruti banaka batzuk lege bideak edegi dituez, Jose'n antzeko katolikuak lenengo maillan, elizan, jartzeko. Portland'go eliz barrutian, oin zazpi urte, USTE ONEKO, «kontzientzi edo borondate oneko» ezkontzetan bizi ziramentzat ateak edegi zituen. Eliz-legea ta «realidadea» alkartu nairik artu ei zan erabagi ori.

Aurreragoko ezkontzea ezereztu barik, bigarren ezkontzan bizi diran katolikuak, iru gauza bear dituez an, katolikutasun osoan barriro jarteko:

1) Orain daroan ezkontza au iraunkorra ta ezkontza onetan il arte jarraitzeko asmoa agertzea.

2) Barriro ezkonduta dagoan katolikua Jaunartzen asten danean, iñontzako eskandalurik ez daitela egon. Zeozelako jarraibide txarra iñorentzat ba' lego, izan daitela aal danik txikiena.

3) Azkenez, *USTE ONEZ uste izan, lengo ezkontzea etzala beretzat Jainkoaren aurrean benetako ezkontzea.*

IDAHO'ko eliz barrutian neurri oneik ontzat emonak izan dira, beste zazpi eliz barrutitan bezelaxe. Bide barri oneik ez dira ontzat artuak izan katoliku zaarren edo estuen artean. Luisiana estaduko eliz-barruti baten, denpora asko ez dala, Obispuari, etxe aurrean, ageraldiak egin dautsoez katoliku mordoak. Ezaugarri, kartel aundietan —Deus Dux— «Jainkoa dogu Gidari» idatziak goian zituezala, egotaldi luzea egiñ eben katoliku estu oneik. Erroma'ra euren kezkak bialdu zituezan gaiñera.

Ipar-amerika'ko gotzaiñ askok zaparrada gogorrak atara dituez aspaldian, mugimendu barri onen aurka. Igaro dan dagonillean, Ipar-amerika'ko gotzaiñen buru dan Philadelphi'ko Khrol Kardenalak pratika ori geratzeko agindua emon dautse danai.

Erroma'n estudioan dago gai ori ta ikusi bear zertan geratzen dan. Denporeak esango dausku.

Pratika orren alde jokatzen dabenak, au diñoe: Maitasuna galdu dan eskontzea ta eriotzaz alderdi bata galdu daben ezkontzea, antzerakoak edo bardiñak ei dira.

Ezkontzea apurtu-eziñeko legea «ideal» bat dala, ta ez aldatu ezin legiken legea.

Bere azkenengo «Power to dissolve», «Ezerezteko indarra» liburuan, John T. Noonan semeak diño: «Eliz legea aldakorra izan da gizaldi askotan. Ez da bat izan. Aldakuntzarentzat tokia egin izan da ezkontza legeetan».

ERREKALDE'TAR DEUNORO

Ormaetxe'tar Fabian

Abeslari bikaiña, Euskalerrian

Beti izan dira euskaldun abeslari ospetsuak: Gayarre, Mardones, Altube, Fagoaga, Agirresarobe... ta beste asko.

Lengo egun batean, gaur eguneko abeslari on bat aurkitu dogu emen: Larrauri'ko seme dan Ormaetxe'tar Fabian, tenore ezaguna. Italia'tik etorrita, bere jaioterri maitean egon da, oporraldi gozo bat emoten.



Totti dal Monte abeslari ospetsuak Ormaetxe'ri zorion-agurra egiten, Italia'ko jardunaldi baten ondoren.

Ta ona emen beragaz izan dogun autu-mautua:

—Egia da, Fabian, oso gatxa dala Italia'n goiko mailletara eldutea, bertako ez diran abeslarientzat?

—Bai. Geroago ta gatxago. Gaur, orain 10 urte baiño nekezago. Italia'ko lege barri baten aginduz, kanpotar abeslariak ezin abestu leikie an, teatru aundi batzuetan izan ezik. Eta orrelako antzokietan, jakiña, goi-goieneko maillara eldu diranak baiño ez dabe abesten.

—Zeintzuk abesti erabilten dituzu geien bat?

—Lirika-saillean oi diran geienak: Luccia, Rigoletto, Madame Butterfly, ta abar.

—Gure Usandizaga zanaren «Mendi-Mendiyan» zoragarria abestu nai izango zeunke?

—Bai orixe! Ta esango dot zergaitik. Ortik atzerri-aldetik ibiltean, askotan abestu izan dot «Joshe Mari» izeneko bakar-abestia, eta oso txalotua izan da beti ta edonun. Sari ederrak be irabazi izan ditut abesti orregaz. Ta ez da arritzekoa: nire almen guztiak ipinten dodaz abesti orretan, Aberria ta Usandizaga zana goratzen daustazalako.

—Zeintzuk dira, zure eritxian, tenor-abeslaririk onenak?

—Antzokietan nik entzunak, onexek: Di Steffano, Kraus, Del Monaco, Bergonzi, Domingo... Eta lenagokoetan diskuetan entzunak, Caruso eta Biorling.

* * *

Ez genduan, tamalez, astirik izan alkarrizketa au luzatzeko. Laster ikusiko al dogu barriro Fabian gure artean, Italia'ko antzokietan garaipen aundiak irabazita. Agur Fabian: ekin eta jarrai!

BEIÑAZU


ZEANURI'TIK

Ara joan, ona etorri, AGUR'erako barriak ekarri! Guk ori egin gura dogu sarri! Eskerrak gure zuzendariari!

Urkiola'ra bilaldia sarri egiten dogu. Umeak gintzazala asi giñan, eta orain bere jarraituten dogu, eta Jaunak lagun, aurrerantzean bere asmo ori ba-dogu. Arratiarrak Urkiola zaleak dira. Aurten bere Parroki guztietatik egin dira errogatibak antziñeko oiturari jarraituaz.

Urkiola'ko ames biak edo asmoak, ara: lenengoa, len izan zan lez, Euskal-Erriko biotza izatea. Orretarako eleizea oraingo erara barriztatzen dabiltz, jentea egokiago egon daiten, eta batera, Euskal-museo bat egiteko asmoa. Orretarako baserrietako tresna zarrak gura dabez.

Eleizea ta inguruak atonduteko, zeanuritarrak burdi txirringak, errota arriak eta abar emon dabez.



Bigarren asmoa, Euskal-Erri'ko mixiñoak zabaldu euskal erri guztieri. Urkiola, Mixio eta Agur zaleok urtero egiten dogun ibilladi ori oiñez, mezea izan gendun, Aita Joseba'k emonda, eta itzaldia, Antonio Intxaurraga'k, irakurgai bateri baiño geyagori entzun neutson, patxadaz irakurri ebala, zergaitik ez ba? AGUR'eko irakurlea izan ezkero, erreza da ulertzea.

Meza ori Jaunari eskerrak emoteko izan gendun, baita San Antonio'ren bitartez, Bere laguntza eskatu gure erriaren alde, Euskal-Erri'aren eta bere Mixioen alde.

Urkiola'ra etorri gara gaur
Ta gagoz ikaratuta,
Ikusirik ain urte gitxitan
Onek egin dauan buelta.
Rios aldeko mixiolariak
Dagoz ona etorrita;
San Antonio Urkiola'ko
Dabe eurentzat artuta.

Euskal-Erri'an jayo giñan da
Gabiltz mundu zabalean,
Baiña batzuek bizi dirala
Euzkeratik apartean.
Emen nozue arreba-anaiok
Orain deadar batean;
Gure izkuntza indartuteko
Danok Alkartu gaitean.

GORBEITARRA

ERRIETAKO BERRIAK

Zestua

Joan zan igandean —urriak 8—, goizeangoiz jeikitzean eta leiotik begiratzean, aize epela ta eguzki dirdiratsua ageri, alako egun ederra!

«San Anton» abes-batzak eskenitako parroki berritzea dala-ta, abestaldi jai txit zoragarria. Jai-aldia eleiz-nagusian bertan ospatu zan. Zestu'ko erriak aski erantzun zuan. Obeto erantzun bear zuala? «San Anton» abes-batzak abestu baiño egokiago abesten ezta orren erraxa. Goiz argi, eder, garbia, etortzen dan lez, auen abestien bitartez alaitsu, eta pozez gaiñezka, gelditu ziran gure biotzak.

AGUR aldizkari ontatik, Zestuarrok, gure eskar-ona agertu nai dizuegu: ez antolatzailleak bakarrik, erri guziak baizik. Bai, eskarrik-sutsuenak, beste zenbait eginkizun utzirik, Zestu'ra etorri ziñateleko. Zuen euskal-nortasuna, ez abestietan bakarrik, saio ontatik at, azaldu duzutelako.

Giputz eta Bizkaitar, danok euskaldun erri bat gerala agertu diguzutelako. Zuek ezagutu zaituztegulako, gure erria euskaldunago izango da; jai-aldi bikaiñ ori, ez da jai utsean geldituko, erriari zer pentsa aundia ezarri diozute. Bestalde gure parrokiaren barritzearen arazoa, ikusirik, abestaldi-jai orri eskerrak, erria girotuaz, ondorenak ez dira nolanaikoak izango.

Abestaldi-jaiak ez du sentidurik ekintza sakon baten barnean ez jarraitzekotan. Eliza gu geranez, eta eliza premi baten aurkitzen danez, ez eliza berritzea bakarrik, danok bere inguruan giroturik, eliza zaindu bear dugu: baiña beiñere ez bakarka, alkarturik baizik.

Sagartzazu'tar Itziar'i ere milla esker bere laguntzagatik; jaia, berak aurkeztua izan zan, eta ez nolanai! emeki asitako aurkezlaria, lendabizi jai-aldi txikietan baiña orain aziagoetan saioaldiak egin ditu.

Beraz, asmo guzi auekin eta elizaren berpizte garaia etorri dala pentsatuaz, agindu nai duzutenean eta gure aldetik, besarkadarik anaikorrena!

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Arratia

ILLAK ETA BIZIAK OROI

Gudaketa ondamengarriaren ondorenak erasota, gazte ederrik asko izan ziran erbeste urrutietara aldendu ziranak; Ameriketa'ra geien batzuk.

Biurtu bere, egin ziran batzuen batzuk, arrotzerrian oraindiño... zeinbatzuk!

Eta urteetan aurrera goazalarik, pitean bein, izaten dogu barri illunik... eriotza ta illetarik.

Lentxoago baten, Zuazo'tar Bixente'ren azkenarnasak Benezuela'tik; oraintzuago ostera, Angoitia'tar Juanita il dala Kolonbia'tik.

Juanita'ren senar atsekabetua, Puxana'tar Erraimunda, arratiar gudarien burua. Adizkide minduarentzat itz guztiak utsak; lagun kutunena eroan dautso, ba, Jauna'ren dei-otsak.

Gu, baiña, emendik besterik eziñean, gogoz lokarriturik aldi samiñean.

POZGARRIA

Zeanuri'n, santixagoz, ire emazte txit ona zanaren aldezko eleizkizunean, On Martin txanburua ta osaba On Permin, mezako. Neke-lagun, adiskide zaarrak ugari, Jauna goratzean Basilio bertsolari:

Buruausterik ugari dogu
gizonok mundu onetan,
askoren arten auxe gaurko au
egiaz eta benetan:
Erri onetan jaio ta azi zan,
orain il Ameriketa'n;
zintzoarentzat an eta emen
zerua dago ber-bertan.
Eriotzeak ebagi eta
gorputzik arimak alde;
gorputzarentzat illunabarra,
arimarentzat sorkalde.
Gizonak daben gogoramenik
bikain-bikaiñena au dabe:
Alguztiduna egiten dala
gure arimaren jabe.
Il dako danak gogoratuaz
eginbear on bat bete,
gure artean Juanita zana
unetxo baten aparte.
Zeruko Aita emon eiozu
Goiko Erreiñuan parte,
eskatzen dogu biotz-biotzez;
ta Juanita, laster arte!

LANDAJUELA'TAR A.

Oñati

JAIAK

San Migel jaiak joan zaizkigu. Esan oi dan bezela: nola etorri ala joan, Mari Juan.

Iraillak 17, Aurren eguna. Iragarrita zegoen bezela, oso ederki ospatu zan. 800 bat aur bildu ziran Oñati'ko enparantzan. Arratsaldeko 7'etan bukatu zan Aurren jaialdia, Agur Jaunak eta Gernika'koa abestuaz.

Jakintza astea, 18, 19, 20 ta 22'an. Iakintzari buruz lau itzaldi izan ziran. Laurak erderaz Oñati'n. 23'an, gabeko 10'etan Euskal Folklore jaia San Lorenzo'ko ikastolan. 24'an, XIII Artzai-txakurren Laterriarteko Txapelketa.

29'an, Mikel Deunaren egunean, goizeko amarretan, Olabarrieta'ko Meltxiorrena baserriko Arregi'tar Andres Paulatar lekaideak lenengo meza. Itzaldia ere bere gain izan zan. Oso euskera errikoian egin ere. 30'ean, Ondarru'ko Mariñelak Kresaletan. Urrillak l'ean, Errosarioko igandea. Arratsaldeko 7'etan Madina Aita oñatiar musikalari ospatsuaren oriomenez Abesbatz saioa. Egualdiak ere ederrak izan ziran eta jente asko ibilla zan Oñati ta Arantzazu aldean.

Ortik kanpora, soiñua ta zaratea ugari. Igaz ere aipatu genduan, eta aurten ere ixillik ezin egon: San Migel jaietan, gure pelota-leku zaarrean pelota jokoaldirik ez ikustea. Gauza onek, pelota zaleok mintzen gaitu.

ZELETA JAUNA

Eskerrik asko, zure oroitzagatik. Baiña zartzaroa edo begietako ikusmena laburtu zaizula dirudi (AGUR'etik, nor etezan loago, Zeleta ala txoperra). Zuk diozun OIAL-SALOKI ori, nik ezaguera detan 70 urte auetan, orain dagoen lekuan ezagutzen det. Zuk diozun goxotegi ura, goragoko atean zan: GARAIKOETXEA' REN GOXOTEGI TA AKEIT-ETXEA ZAN. Gaur, Donosti izeneko diru-etxeak artua dauka. Ari dira konpontzen; zu urrengo onera zatozenerako an ikusiko dezu aipatu dizudan diru-etxe orrek ateak zabalduta.

DANETIK

Txile'ko Santiago'n berrogei urte egin ondoren, Zulueta'tar Oskar bere jaioterrira etorri da. Joan zanean bezin ondo edo obeteago euskeraz itz egiten duala. Ongi etorria, eta ondo egon dedilla bere erritarren artean.

Pozik irakurri degu Labayen jaunaren «Sasi-batasunari» burusko liburuzka. Gogorkeri gabeko erdibide bat, ederki erakusten digu. Euskeltzaleok artu bear degun bidea.

Anakabe'tar Eujenio ta bere arreba Mari, euren udarako egonalditxoa emen eginda, Bilbo'ratu dira. Kukua datorrenean berriz onera itzultzeko asmotan. Ala izan dedilla!

ERRIZALE

Tolosa

PERRITXIKOK

Perritxiku astea joanik da. Perretxiku agerpena Urrilla'k lenengoan egin za. Ikusle asko. Irabazlea: C. A. Uzturre-Tolosa, bigarren Iradier-Gazteiz; irugarren Aris-Zizurkil; laugarren Peña Sta. Cruz-Galdakano, Onela 23 talderaiño.

Bezperan, Perretxiku-Argazkiketa. Irabazle, Iñaki Gonzalez-Gazteiz

Diapositibak, Xabier Laskibar-Donosti. Perretxiku Sukaldaritzan, irabazle Luis A. Zerezeda-Tolosa; bigarren Franklin Mc.Mahan-USA eta onela 21 sukaldari arte. Berrogeitamar trofeo baiñan geiago eman ziran, beste anitz opariak ere bai.

UKRONIA 1972

Norbaitek utzita irakurri det. Onelako tentelkeririk! Ez da zailla Euskaltzaindia'ko lendakaria izatea onelakoekin lortzerik baldin ba'dago. Betiko leloa, aulak bizia eskeiñi genuanoi burla egiten...

Gero, oera joan nintzan. Amets egin ere. Amets, Txatxuof Kintanozpinev eta konpañia nagusi, Ukronia 1999 zer izango litzaken. Zein egoitz polita! Zeiñen «tipo interesanteak»! Amets ori idatzian ipiñiko ote det?

«UDABERRI»

Dantza talde tolosar onek, Urrilla'k 7'gn euskal jai eder bat eman zigun. Jende asko eta txalo ugari.

SASI BATASUNA

Laister aterako da bigarren argitaraldia. Lenaz gaiñera zeredozer berri-erantsia izango bixigarriagoa izateko. Aurrekoa bezin aixa salduko da.

EUSKAL ESKU-LANGINTZA

Zorionak adiskide Juan Garmendia Larrañaga'ri. Irugarren liburua du gai onetzaz. Euskera garbiaz eta erderaz dator. Gaiak: Urbia, Artzai bizimodua, Gaztagintza, Yoare, Yoaregillea; Elgoibar, Abarkagillea, Iltzegillea; Leitza, Aizkora; Betelu eta Yeregitarrak-Betelu'ko erlo jugilleak. Irarri: «Auñamendi Argitaldari. Euskal maitaleentzat liburu egoki bat.

EUSKAL ABESTI LEIAKETA

Urrilla'k 20: Mai borobilla. Gaia: Euskal Eresiaren Sustraia. Parte artuko dutenen artean: Caro Baroja, Eskudero, Bernaola, Gonzalez Azilu eta Rodrigo Santiago jaun ospatsuak. Onen ondoren, Abest Asmaketa Saria nork irabazi duan esango da. 15 konpositore datoz 25.000 laurleko saria irabazteko asmoaz.

Urrilla'k 30: Abestalde erdien saiaketa.

Urrilla'k 31: Beste erdien saiaketa.

Azilla'k 1: Saritutako abestaldeen azken saioa. Aita Madina'ri omenaldia. Meza nagusia. Sei abestalde irabazleek bere meza abestuko.

Abestalde saiaketan maikoak: J. Bello Portu, A. Sagaseta, J. Pildain, Oriol Martorell eta J. A. Ruiz-Dona jaunak.

Abesbatz asko azaldu diralakoz, galbaia erabilli dute, eta onentxo auek geldi: Coral Oñati-Oñati, Leidor-Tolosa, Sta. Cecilia-Donosti, Billaba, Lartaun-Oiartzun, Donosti Ereski, Deustoarrak, Sta. Cecilia-Billaba, Luchanajor-Mallorca, Orfeón Burgalés, Edurne-Gazteiz, Begiraleak Oldarra-Biarritz, Vallisoletana, San Ignacio-Donosti, Coral Valladolid eta Juvenil-Gazteiz.

Saio gustiak LEIDOR ANTZOKIAN.

Abesti beartuak auek: Abots naasikoentzat: «Irulea». Berdiñentzat: «Gure Izkuntza. Juan Ueteaga donostiarra eta Eduardo Mokoroa tolosarraren abestiak.

CIT'ek eratzen du, Castellblanch'ek lagundu.

Ara itz-zuurrean esan laister izango ditugun abesti-jaiak.

UXOLA

Irura

PESTAK GORA-PESTAK BERA

San Migel aurretik galdera auek entzun oi ziran gure errian: Aurten pestarik bai ote? Nolakoak? Pakean? Nortzuk eratuta? Kezka orrekin bizi izan gera. Oraiñ pestak bukatuta gero, galdera oieri erantzuteko modun gera ta ona erantzuna: pestak izan dira, ederrak, euskal kutsukok, biotza eragiteko moduko ta paketsuak, Jainkoa'ri esker.

San Migel egunean eta Errepetitzio'koan Tolosa'ko Leidor abeslari taldeak Perossi'ren Meza «in RE» abestu zigun, berak dakin bezela; luzetxo joan zan, bost ordu-laurden baiño geiago. Ala ere ez giñan aspertu. Ondoren, zimitorioan, kantaldi polit bat entzun genion.

Iru egunetan pelota partiduak —xarez— izan ziran, oso burrukatuk eta mail guztitakoak: mutiko, gaztetxu, gazte ta sasoikoen artean. Kontrarioak Zubero'tik etorriak genitun: jokaldi bizi ta politak izan ziran eta bai batzuek eta bai besteak txalo asko ostu zizkiguten. Aruntzko pillotariekin batera etorriak ziran Bordele'ko «Sud-Ouest» egunerokoan «BOTA» pillota kritikalari ospetsua ta Saint Palais'en dagon eskola nagusiko apez zuzendaria. Onek zubero-euskalkiaz eman zion Meza erriari, ta aiek eta gu anaiak, ama baten semeak giñala jabetu giñan.

Lasarte ta Agirre bertsolariak ere beren bertso errex eta piperdunekin gozatu bat eman ziguten. Baiñan geien-geien jendearen biotza ikutu ta pil-pil jarri zuana, Tolosa'ko UDABERR Italdea izan zan; irurogei lagunetik gora izango ziran danak eta mota guztiko dantzak dantzatu zizkiguten... eta nola?

Neska ta mutillak: Ituren'go soka-dantza, Iribas'ko ingurutxoa, ta Imotz'ko esku-dantza dantzatu ziran.

Neska txikik: Kontrapas, Sagar-dantza, Ustaidantza ta Museta.

Mutikoak: Saint Petrik eta Jorrai-dantza, eta bukaera emateko.

Mutillak: Larraiñ-dantza ta Neskak: Jaurrieta'ko dantza.

Zeiñek baiño zeiñek obeto: neska txikiak pausoa ondo markatuaz, mutikoak bizitasunez eta egitasunez batez ere zaragi-eramaillek; neskak emeki ta mutillak gizonki ta denak dantza bakoitzari zegokion itzal eta errespetuaz, zertan ari ziran ondo jabetuta.

Soiñulariak: txistulari, albokari, auspojotzaille, dunbalari ta atabalaritzaz zer esan? Goieneko mailla jo zutela. Eta denak, bai dantzariak bai soiñulariak, antziñako euskal erara jantziak.

Eta goizero kalejira ta gabero plaza soiñu alaiekin piztuarazten zituen txistulari irukotea ta «Los Zafiros» musikeroak aitatu gabe ezin ba utzi. Auek ere beren egitekoa ondo ta zintzo bete zutela aitortu bear.

Pesta eratzailleeri, zorionak. Olako pestak bear dira errian. Urrengo urtean Batasuna gure artean erabateko izan dedilla.

YODABE

Galdakano

URA

Ez dago zalantzarik, eginkizun egokirik asko egiñak daukez gure erriko udal gizonak, azkenengo urteotan, ta baztez bere aldi ontako Endoreak aginpedea artu ebanetik onera: ikastola barriak, zaarren barrizteak, erri-bide ta txaideen apainketak, atzeden baratza, jolas-lekua igeritegi ta guzti, ikastetxe barria... eta orain, ikastola barriak egiten diardue. Beraz, guzti ori oso da txalogarria, ez dago zalantzarik, baiña eginkizun txalogarri guztiok baizen bearrekoa edo geyago dan zerbaiten adi gagoz aspaldian galdakaotar guztiok: errian edaten dogun ura garbitzeko irazkikiñen bearrari.

Lekubaso, mendiarte zabalean Galdakano'ko erriak daben urbatzatik datorkigun ur garden gozoak, ba ebazan irazkin egokiak Usansolo auzunerako sarrayeran, baiña ez dakigu zertarako ta noren aginduz, gurartean izan genduan gudaketa zitalaren ostean ezeztu ta aldendu ziran, eta ordutik ona, ez dogu besterik izan. Egixa da, Lekubaso'ko ura gardena dala, baiña menditarte aberats areitan baso-bide asko egin da azkenengo urteetan, bertan diran lerdoi ta beste zugaitzen zura ateratekо, eta ori dala bide, lur asko astindu da, eta orregaitik euria pizkat sendo egiten dabenean, kokola baiño loyago etorriten yaku, derrigorrean, gitxi edo asko, bear dogun ura; arriskuan ipiñirik erritar guztiyon osasuna, ta batez bere, arrisku orreik ezagututen ez dabezan umetxuen osotasuna.

Edozeiñek daki, irazkin barriak yartzea ez dala arazo erreza, baiña Erriak eskatzen dau, ta bearrezkoa da; beraz, egin bear dana, berak ordainduten dau-ta.

EZKONTZAK

Urrillaren 7'gnean, Arkotxa'ko txadon apaiñean, auzune artako Rodrigo ta Gorostiaga'tar Miren-Gurutzne neskatilla liraiña ta gure erritar eta adizkide on Otxoa ta Oleaga'tar Joseba-Pernan mutil zintzoa, ezkondu ziran.

Baita egun berean, erriko txadon nagusian, erritar Sagasti ta Muñozguren' tar Miren-Begoñe neskatil liraiña ta Basauri'ko Lopez'dar Alpontso mutil azkarra be, ezkondu ziran. Zoriontsuak izango al-dira sortu dabezan kabi barrietan, gazte zintzo orreik.

GURE BEZEROAI

Ez dakigu zein asmogaz, errian oso zabaldu da, orain dodan lantegia, ulemoztegia, ertsiten daustenean, ta laister izango da etxe barria egiten dabiltzazelako, bertotik alde egiten dodala. Ez da ori egixa, irakurle maite. Txaidean bertan, ogeita bost bat neurkin alboratxoago aurkituko nozue, J. L., orain baiño areto apaiñago baten; osasuna dogun artean beintzat. Eskerrik-asko.

BASA-JAUN

Euskal Erriko Gizon ospetsuak

ISIDORO FAGOAGA

Donosti'ko lagun bateri zor diot, gaur emen azalduko dan alkar-izketa. Berak esan zidan, ain zuzen, nor dan Isidoro, nun dun bere bizilekua, ta azkenik, berak eman zidan aukera, Fagoaga'rekin aurrez-aurre jartzeko.

Gero ikusiko degun bezela, Isidoro'n bizitzan, bi gauz dira geien ikutu bear diranak. Fagoaga idazle bezela ta Fagoaga abeslari bezela. Besterik gabe eldu dezaiogun alkar-izketari.

R.—Nun jaioa zaitugun, eta zure asieratzaz zertxo bat adieraziko al diguzu, Isidoro?

I.—Naparra naiz, Bidaso'ko Vera'n jaioa. Nere sendikoak baserritarrak ziran eta etxegilleak... kontrabandisten bat ere aurki izango zan, noski. Nere lenengo ikasketak, Escuelas Relijiosas, deritzaion ikastoletan egin nitun. Zortzi urtetik amalau bitarteraiño berriz, P. P. Escolapios'etan. Amalau urtekin joan ninizan bakar-bakarrik, Buenos Aires aldera. An arkitzen ziranez nere senide batzuk.

R.—Buenos Aires'en zer eratako eginkizunak bete zenitun?

I.—Napar bat, ferreteri denda baten jabe zen. Denda orretan asi nintzan beraz lanean, morroi bezela. An irabazten nitun txanponak, Teatro Marconi'n apurtzen nitun, azaltzen ziran opera merkeak ikusten. Opera oietan entzundako abestiak, bereala gelditzen zitzaizkidan belarrian. Ta lanean ari nintzan unetan, abesti aiek abesten jarduten nintzan. Lantokiko batzuk ixiltzeko esaten zidaten; besteak ordea, abots ona nuela ta aurrera jarraitzeko. Orrela pixka bat suspertu ondoren, tenor batengana joan nintzan ikasketa batzuk egiteko asmoakin.

R.—Nola izan ziran beraz, zure lenengo artueman eta agerraldiak jendearen aurrean?

I.—Egun batez, Florencio Constantino, bizkaitarra, Ortuella'ko tenorra, abestera joan zan Teatro Colon'era (Ludian arkitzen zen onenetakoa). Izerdi askoren indarrez, eta aurreratuta neuzkan txanponekin asi nintzan delako antzokira joaten. Ala gertatu bear ta, egun batean, Constantino'n etxean, bera etorri zai itxarotea erabaki nuen. Etziran berealakoan iritxi neregana. Constantino ta Titta Ruffo baritono ospetsua etxean asi ziranean sartzen, bien aurrez-aurre jarri nintzan eta onela mintzatu: «Ni abestiaren «dilenttante» bat naiz, sarritan joaten naiz Colon antzokira, eta abots una dudala uste dut. Neretzat benetan atsegingarri izango litzake, zuen bion aurrean abestea». Nere trebetasuna ikusirik-edo, etxera igotzeko esan zidaten. Constantino pianoaren aurrean exeri ta beatz batekin bakarrik jotzen zuelarik, «romanzas italaianas» abesteko agindu zidan. Abestea amaitu ondoren, onela mintzatu zidaten biak: «Ederki zegok, ire abots orrekin zerbait egin lezakek. Milan aldera joan bear dek eta an irakasle on baten eskuetan jarri». Bion artean eskeiñi zidaten Milan'go irakasle onenen izen eta zuzenbideak.

R.—Buenos Aires utzi, ta Milan aldera abiatu ziñan beraz?

I.—Aurreratuta nuekan diru pixka batekin, eta senide ta laguneri «kendu» niotenakin, irugarren motako «pasajea» arturik Itali'ra joateko prestatu nintzan. Gose ugari igaro nuen une aietan, ez nuen ez masaje bearrik, gorputza meiarra edukitzeko. Itali'n negolarik, txapelketa bat moldatu zan Parma'ko konserbatorioan. Parma, Verdi ta Toscanini'n aberria da. Txapelketa ori, aipatutako kontserbatorioan zortzi leku betetzeko izan zen. Ori zan beraz eskeintzen zuten saria. Zortzi leku bete bear eta 180 agertu giñan. Yainkoari esker, sari oietako bat nik irabazi nuen.

R.—Len esan dezunez, ikasketak prestatzeko asmoakin joan edo abiatu ziñan Milan aldera. Ikasketa aldetik zer egin zendun?

I.—Bein konserbatorioan sartu nintzalarik, asi nintzan ikasten. Esan bear det ikasketa aiek oso gogorrak zirela; sei orduan aritzen giñan onako gai abek ikasten: Artea'ren kondaira, Literaturarena, abestiarena, gero, pianoa, solfeoa, Itali'ko izkuntza, eta guk aukeratu nai gendun izkuntza bat —nik alemana aukeratu nun—, makillaje edo apainketak eta abar. Garai artan ordea, Mussolini'n iraultza jabetu zen Itali'n. Ikasketak jarraitzeko, oso une txarrak izan nitun, atzerritar guztiak batez ere, ez ziren-ta Mussolini'n gustokoak. Gertakizun au bide zelarik, eta zalantza askoren ondoren, berriro nere sorlekura biurtzea erabaki nuen.

R.—Ikasketak, esan genezake, moztuta gelditu zirela orduan. Izan al zendun gerora aukerarik, berriro ikasketak jarraitzeko?

I.—Itali'n egon nintzan garai aietan, aurreraturik utzi nitun nere ikasketa oiek. Beraz, berriro jarraitzea zen neretzako bide zuzenena. Bidaso'ko Vera'n, Rikardo Baroja, D. Pio ospetsuaren anaia, neregaitik benetan arduratu zen. Bere eta beste batzuen laguntzekin, Naparroa'ko diputazioaren beka baten jabe egin nintzan. Ori eskuetan nuelarik, Madrid aldera joan nintzan. An jarraitu nitun nere ikasketak, andaluz batekin, naiz bere abizena euskalduna izan: Iribarne tenorrakin.

R.—Jendearen aurrean noiz izan zen zure agerpena?

I.—Iribarne'kin asi ta andik zortzi illabetera azaldu nintzan «Teatro Grande» deritzaion antzokian, Saint Saens'en «Sanson eta Dalila» operakin. Opera au abestu ondoren, Arbós irakaslea eta Casali enpresarioak kontrata bat egin zidaten España ta Portugal'en barrena bira bat emateko asmoakin. Orduan «Parsifal» ta «La Walkiria» abestu nitun.

R.—Wagner'en abestiak dira, zuretzat, atsegingarrienak. Zergaitik?

I.—Nere irakasleak, Wagner'en abestiak abotsa autsi egiten zuela esaten zidaten. Leikena da ori orrela izatea. Baiñan, esate baterako, Itali ta Frantzi'ko abestiak, baita Mozart batenak ere «lojika» autsi egiten dute. Beren «arias», «dueto» ta «romanza»ekin. Beren esan-bearra sentidorik gabe gelditzen da beraz. Bestaldetik, dana esan bear da, Verdi, Fuccini, Messenet eta beste musikalari ospetsuen abestiak abesteagaitik, iru milla lira ordaintzen zidaten. Wagner'en abestiagaitik ordea, amar milla lira eskatu ta eman zidaten. Eraberean, pozgarria da neretzako, Wagner'en abestiak abestea. Onen kantak, orkesta aundi bat eskatzen due, beraz antzoki aundietan azaldu bear dira. Baita esan bear dizut, Wagner'en seme Sigfirido'kin artueman aundia edukitzen nuela. Gaur egun oraindik, gorderik dauzkat, berak neri bidalitako eskutitzak.

R.—Nun izan dira zure agerraldi garrantzitsuenak edo zuretzako atsegiñenak. Zein lekutan?

I.—Len esan detan bezela, Wagner'en abestiak abestea, antzoki aundi ta sonatuenetan agertzea eskatzen zuen, beraz antzoki aundienetan ibillia naiz. Baita «Amaya» abesteko aukera ere izan det: Bilbo, Gernika ta Oporto'n, eta Teatro Real'en Madrid'en, Buenos Aires ta abar. Bestaldetik, Ruy Coelho'n «Auto do Barco» abestu nun Portugal'en. «Tebaré» Arjentina'ko opera Buenos Aires'en. «Anna Karenina», Robbiani'rena Erroma'ko Teatro Real'ean.



R.—Literatura maillan ere zerbait egiña zera. Gaiñera, jakin det, zure benetako «bokazioa» idaztea izan dela. Zer derizkiozu zuk oni?

I.—Nere abeslari karrerak, ogei urte luze iraun zun. Onetzaz gauz asko esan nezake. Baiñan egia da bai, nik idazle izateko zaletasun aundiagoa izan detala, abeslari baiñon. Naiz idazle izateak eman ez abeslari bezela izan dedan diru ta fama.

R.—Noiz asi ziñan, edo nundik sumatu zendun zaletasun ori?

I.—Ikasle nintzala, P. P. Escolapios'etan ibilli nintzan urte aietan, asi zitzaidan zerbait idazteko zaletasuna. Orduan egiten edo sumatzen nitun olerki aiek, jakiña danez, ez ziren argitaratzen, «kojo» gelditzen ziran. Gerora ordea, zerbait tajutu ondoren, asko idatzia naiz; bai italianoz, erderaz edo frantzesez —euskeraz egiteko aukerarik ez nuen izan, ta orregaitik ba-dut pena; baiña ia ume nintzala atzerrira joan eta berrogei ta amar urte igarotzeak, utzi nindun egoera orretan.

R.—Batez ere, nun argitaratuak izan dira zure lanak?

I.—Amazazpi urte dira, Buenos Aires'ko izparringi batera nere lanak bidaltzen ari naizela. Baita Itali, Frantzi ta Euskalerri'ko izparringietara ere, bidaliak ditut makiña bat lan. Gaiñera, sei liburu ditut argitaratuak, ta orain, zazpigarrena antolatzen ari naiz.

R.—Askotan, idazleari deitu egiten zaio leku askotatik, itzaldi berezi batzuk emateko. Zuk iñoiz itz egin al dezu jendearen aurrean?

I.—Eta ez bein bakarrik gaiñera, dozenaka itzaldi emanak ditut, aberri ta izkuntza berexitan. Egun batez, Paris'en «La Sorbona»n, itzaldi bat eman nuen. Nere itzaurrea Frantzi'ko akademiko batek egin zun, eta entzuleen artean, Agirre, Leizaola, Irujo ta abar aurkitzen ziran.

R.—Ba al dezu ezer geiago esateko, Isidoro?...

I.—Bai. Gernika izparringia, nere laguntza ta zuzendaritzapean egin zan. Lenengo aldiz Donostia'n argitaratu zen, ta nerekin batera lana egin zuten, Pikabea ta P. Thalamas'ek. Gerora, eta iru urteren buruan, Buenos Aires'en neronek bakarrik ematen nuela. Izparringi ori, euskeraz, erderaz eta frantzeraz argitaratzen zen. Bertara ORIXE aundiak bidali zituen ere lan agurgarri ta ospetsuak.

Alkarrizketa amaitu da? Gizon aundi baten ondoan, ni benetan tikia gelditzen naiz. Berak naikoak esan ditu. Zer geiago esan nezake?

RAMON ZAPIRAIN

MATXIN LURREZ

Matxin gizona izan zan. Gizon gizonaren ezaugarriak aundiak eta zabalak dira, baiña almen orrek, gizonki erabiltea, erreza ez da. Berezko legez artzen dira adimenaren zorroztasuna ta biotzaren sendotasuna. Norberak sortuak ez dira. Iñundik iñora be ez. Almen onek izatez arturik, umea, adin arora eldukeran, iru bideren aurrean aurkitzen da: alperkeria, okerkeria, zuzenbidea.

Iru bide onetako bakoitzak bere jarraitzailleak ditu. Alperkeria, bertan berakoa ta oso bide zabala da. Jokabide au, berez, erreza da ta jarraitzaille ugari dau. Iñori ikutu barik izan ezkero, gaitz erdi litzake. Era onetako gizakumeak beregan dau, beti, leunkeri ta on itxurazko aurre ederra. Eztia dariola dirudi.

Okerkeria da beste jokera bat. Bide onek ba-ditu bere gaiztasun ta gogorkeriak. Ez da ain erreza. Aldatzak, arkaitz-arteak, zuloak ta okerrak milla ditu. Baiña bizitzan, norbere asmoak, aurrera, eroatearren, kurutza gogorrak onartzen dira. Batzuetan, norberaren geroko onerako artzen ditu samin ta zama gogorrak; bestetzuetan, gelditu barik diardu itzez ta egitez, auzokoaren biziak apurtzen. Au egiz, kaskarkeri negurri bakoa da. Jokabide au be, nastua da gizadiari zauri aundiak sortzen dautsoz.

Irugarren jokaerea zuzenbidea da. Au lagun zintzoak artzen dabena da. Egia dauke elburutzat, ta ara eltzeko bideak be, beti, egizkoak aukeratzen ditu. Gizon zuzena ez dabil azpikeriz bearrean norbere onurei begira. Egizko bear-izanak eskatzen daben giroan jokatzen dau. Ta egiak, sarri, aldatz-gorea dakar, kurutza gogorrez inguraturik. Bide au ez dau izten; gogoz barren barrendik oratu, ta antxe, urtuko dau bere bizia, ta egia gizadiaren aldez doan lez, gizon zintzoa be gizadiaren aldez martiri ilgo da.

Matxin'ek, aldi artan, beretzat aukeratu eban bizitzan zintzotasuna izan eban ezaugarri. Leialtasunaren indarra bere odol ta kristiñau siñismenean eroiazan noski. Gaiztasunean, iñoz ez eban atzerarik egingo, ezta lurreko losinkerien aurrean makalduko ta adurkeriagaitik bururik makurtuko. Argi eukan barrena ta bere bizitzako lorratzbidea be garbi itxi nai eban.

Prebesa'ko burrukaldi izugarrianen ondoren, Korfu'n egin zituan egunetan, barriro, indarbarritu zan ta etorteko burrukaldietarako gertu egoan. Itxaroten. Berak eginbeartzat eukan arazo arei erantzuteko zain. «Monte Kalbo» Turkarren menpetik askatzea izan zan. Eguna eldu zan ta nagusien aginduz itxasotik lurrera sartu ziran. Gogoz. Garra erioela irudien, ta an egozen turkarrak, bildurrez, iges egin eben. Gero, ondoren, bizitza geldia izan eben, baiña janariak, urritzen urritzen, asi jakezan. Ta ortik bizitzako esturak jatorkezan, bai erriari ta gudarozteari. Egun barriaren sortzeak goseak geitzen eutsoezan, ta Matxin, egun baten, gudari taldebatekin itxasora joan zan bizitzari eutsi al izateko, janaridun izontziren bat agertzen ba'zan ikustera.

Erragusa'ko uretan, zain zain, egoala, Benezia'ko janari barku aundi bat agertuagaz batera, bere gain sartu ziran ta ezertarako astirik emon barik beneziatarrei, lagun ta janari guztiagaz jaubetu ziran. Gero, batel txikietan lagunei askatasuna emon eutsen ta janariagaz «Monte Kalbo»ra biurtu ziran. Matxin'en aunditasuna aundiago egin zan, gosea kentzeko janaria emon eutson erri aren aurrean. Esan ezindako pozagaz goratasun aundiak egin eutsezan Matxin'eri. Goseak eraginda egin eban au, bakarrik, mungiarrak; biziaren legea aurreragokoa zan Matxin'entzat.

Ondoren, bakezko egonean ta zerbait egin nairik egozan Matxin ta bere lagunak, baiña nagusiak erabagirik ez eben artzen. Aurrea etsaiak artu bearko eban, ta egiz, Barbarrojas ta bere lagunak eun milla gudarikin agertu jakezan erria inguraturik. Betiko leloa, betiko negarra! Iru milla lagunek, bakarrik, Matxin barruko zala, eun millaren aurka, sendo, jokatu eben zintzotasun guztiagaz. Odola batetik, odola bestetik, millak lagunak il eutsezan Barbarrojas'i. Kristiñauen aldekoak erdiak illak, asko zaurituta, Matxin'en gorputza burdiñaz zulatuta, erriko kaleak apurtuta, gaztelua birrinduta, gizontasunez eutsi eutsen euren asmoari.

Baiña geiago ezin, indarrak urriturik, ta erri artako burrukea amaitu zan. Etsaia garraille ta MATXIN erraldoi bat egiñik bere ta etsaien aurrean. Barbarrojas urreratu jakon esanez: MATXIN, zure siñismena itzi ta gure siñismenera zatoz. Aginpidea ta goratasuna zurekin izango dituzu gure artean». Baiña MATXIN euskaldun gizona zan ta KRISTO'ren jarraitzaillea. Gauz bi onek ezin ukatu zituan: EZ. EZ! Ez, ta siñismena ez ukatzearren, samea ebagi eutsen. MATXIN, zerk balio dau geiago!...

SOLOZABAL'TAR PAULIN

«ORIXE»RI

GORASARRE...

ALA BERA-ASARREZ?

Aldizkari batek, banako berezi bat eskeñi dio «Orixe»ri, gorasarre asmoz. Ederki dago ori! Eta «gorasarre» ortan ba-da lan ederrik, «Orixe» sardetzat artuta atxeko zimaurra astindu ta atxeak atzeko atetik sartzeko ez ba'da izan beintzat.

Goresmen oiek ez ezik, kritikak utsegite ta akatsak agertzea ez dagoala gaizki esango genuke. Bearrezko lana da. Orain, banako berezi ortaz, eztena sartzeko balia nai izan dutenok, lerde ta beazuna isuriaz «Orixe»ren izen eta omena lokazteko, nardagarri zaizkigu. Eta bere burua «super-intelektualtzat» daukan gizontxo arro batek, «POEMA» zer dan ez dakiala azaltzen digu.

POEMA politika edo gizarte arazo bat bezela epaitzen bait du; etorkizunerako «programa» ekonomikoa edo zerbait antzeko bai'litz.

EUSKALDUNAK ertiz, poeziz, elederrez eta asmamenez neurtu bear da, literatura guztiko olerkiak bezela. Eta ez bestela. Oiturak eta gizonak aldatzen joan dirala, bai noski, baiñan an gelditzen dira betiko agiri... ta eredu; besteak paper zarretarako juxtu-juxtu.

«Euskaldungoa» gure baserritarrak, artzaiak eta menditarrak egin zuten geienik, ta au ukatzen duanak, «Apoteosis del Jebismo» erdaiñez gaitz-izena aizatuz, endekatu bat besterik ez da. Berak jakingo du zein arrotz-agureren billoba dan!

EUSKALDUNAK poeman agertzen diran gizonkiak, «irendu» batzuk dirala ta beste itz iraingarriak esan dituanaren arpegira itzuli nai dizkiogu. Nun ditu bada, ba... sua piztu ta gero igesi babesean gorderik dagon «izuzki-gizon» bulartsuak?

Umekeria derizkiogu paper askotan erderaz idatzi duanak «Orixe» rierdelkeriaren errua botatzea. Eta orobat, gramatikakerian lege estuak eman nai izatea, maixukeri zipotza, Erri'ko eskolatik urrunduaz.

KIÑARRETZA

AGVR

III URTEA
60 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - AZILLA - 4

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

EGOKI

Izadian egokitasun bat dagola errez ikusten dogu: Izaki bakotxak bere legea dauka ta utsik egin barik betetzen dau, edo beintzat, utsak ez dira egunero agertzen diran jazoerak.

Beste alde batetik, izakiak osotzen daben izadia ain korapillotsua dan ezkero, ezin ukatu Egillearen jakituri ta almena.

Egokitasun au errezen izaki aundietan agertzen jaku. Geure begiz ikusten dogu, esaterako, gau izartsu baten. Eta ori naikoa ez ba'litz, ziur dakigu gizona aztertze oneik egiten zalea izan dala; eta ez gaur bakarrik, millak urteak dirala Kaldai'tarrak eta Aigipto'tarrak orretan ekiten eben: izar bakotxari bere izena ezarriz eta bere aunditasuna ta abar neurtzen aleginduz. Orretarako, urrutikuskiña edo urrun-betaurrea asmatu eben. Ikus-gaillu au, lenengoetan ez zan aurrerapide aundirik, baiña gaur, izardira begira egiten diran aztertze lanetarako laguntza aundia da.

Izaki aundien egokitasun au aztertuez, Newton'ek lege jakingarri bat aurkitu eban:agiri jakuzan izakiak alkarrengana joten ebela, eta jokera au euren izagaiagaz batera ta urbiltasunaren laukiagaz doala.

Izaki aundiak dituen abiadak be neurtu ditu gizonak. Benetan ikarragarriak. Eta abiada oneitan bakotxak bere bidea daroa, Newton'en legeari jarraituz.

Ba da, ba, egokitasuna izaki aundien izadian.

* * *

Izaki txikiak begiratzen ba'doguz, euren egokitasuna ta alkar-indarra ain argiro ez jakuz agertzen, baiña jakitunak egin dabezan billaketai esker, egokitasun ikaragarri bat daukela ziur dakigu. Atomo edo kizi baten barruan, eguzkiak bere inguruko izaki aundiakaz daukan antzeko egokitasuna ei dago. Eta an zelako alkar-indarra dagon jakin nai ba'dogu atomotik edo kizitik sortu dan lerkai edo bonbearen indarra konturatu dagigun. Mundu bildulgarria benetan izaki txikien mundua, euren artean gizonak bere eskua sartu dauanean!

Izaki aundien izadian, eta txikienean be alan izango da, jazoten dira ondamendiak be, baiña ez da au eguneroko gauzea.

* * *

Bizigabekoetatik bizidunetara igaroten ba'gara, egokitasun au oindiño ikusgarriagoa da.

Gelatxuak dira bizidun gorputzkiñik txikienak. Eurak jaio ta azi, jan eta edan. bizi eta il egiten dira. Eta ainbeste milloi izanik egokitasun ikusgarria bide dala, euren ingurukoakaz alkartu egiten dira eta orrelan gorputz-atalak osotzen dabez; gero atal guztiak bat egiñik, gorputza; au goitik bera ta oso-osoan biziz asetuta dago. Bizia da batasun berezi ori gorputzari damotsona, gizakietan gogoa edo arimea.

Izaki oneitan be izaten dira gaizoak, baita, lenago edo geroago eriotzea be ba datorke, baiña ezin ukatu izaki txiki oneitan egokitasun jakingarria dagoala.


* * *

Baiña or amaitzen da egokitasun ori. Izadiaren gorengo maillara, gizadira edo gizartera, eltzen garanean, ez dogu ikusten egokitasun ori: ez dago batasunik, ez dago alkartzerik, gudak eta burrukak ugaritzen dira. Eta au, bai sendietan, bai errietan, bai aberrietan baita laterri-artean be. Zer jazo ete da gorengo ta ederren dan izadiaren mailla onetan?

Izakiak azkatasuna lortu dabe eta azkatasun orrek batasuna galazo dau. Baiña, izadiaren bidea orrantza dan ezkero, azkenera eltzen garanean egokitasun osoa egingo da. Gaur ba dira benetako batasunaren aurkalariak, baiña orreik izadi barrian ez dira izakide izango.

Itzi dagiguzan kalte-egiteak, burrukak, gudak eta izadi barrian izakide agertu gura ba'dogu, zuzentasunean eta bakotxa bere lekuan bizi gaitezan EGOKI.

AGVR



Zein erreza dan aurrak atzipetzea, gurasoak lo diranean batez ere!

BATASUN BEARRA

Urte asko igaro dira, ia gu batere konturatzeke, gure izkuntza, gero ta atzerago geldituaz, gaztelaniari tokia uzten ari danetik. Euskeraren galerako bitarte diran indarrak, oso zabalera aundiakoak diranez, ekintza baiezkoi batek bakarrik zuzenduko luke. Alegia, benetako batasun batek!

Gaur-egun euskeraren zabalera Auñamendi aldeko zati ontan sartuko genduke. Erronkari? Ta Zubero'tik, Bilbo ingururaiño, ertsitu ta mugatuaz. Gipuzkoa'ren mugak, asi Aralar'dik eta Bizkai ingururaiño obeto babestuak izan dira. Araba'ko Billarreal, Aramayona, Llodio ta auzoetan, urteetan aurreratxo sartutakoak bakarrik mintzatzen ziran. Ordunik gaur-egunera, urte batzuk igaroak ditugu: egin duan aldea nabarmena ta aundia da; eta, ez dut pentsatzen erri oietan, gure izkuntzan aunitz mintzatuko diranik.

Bizkaia'n, Zollo, Begoña, Deusto, Barakaldo ta Lejona; ia oraintxe arte, euskera toki oietan mugatzen zan. Ba-dira 100'dik 50 erdaldun diran erri batzuk; eta jakiña, aurrik geienak gazteleraz mintzatzen dira. Eta beste erri batzuk, aspalditxoan euskera galdurik bizi diranak...

Ipar-alderuntz jotzen ba'dugu, Biarritz, Bayona ta Endaya, zer esanik ez, ipar-aldeko mugatik indartsu erraiñaturik, prantzeera izkuntza nagusitu da.

Nere guda-mutiltza Lizarra'n bete nuan; erri onen inguruak miatzen genituan. Asi Dikastillo, Ayegi, Zuñiga, Arroniz, Abarzuza ta Zufia e. a. Erri auetako batean, XVI'go mendean euskeraz idatzitako agiri bat edo beste aurkitzen ote diran entzun oi izan dugu. Naparru zabaleran lendabizietakoa, euskera galdu duan erria, ziur-aski Lizarra izango da. Erri zaar ontan euskera oso-osorik galdua da; zoritxarrez, gure izkuntzaren izpirik ere, ezta entzuten. Inguru oietako eusko aiek aiñ antziñazale, ta beren bitxirik ederrena euskera izanik, galtzen urziaz, orren ajolagabeak izatea, benetan tamalgarria.

Orain berreun urte gutxi gora-beera, Naparru aldeko erri askotan euskera mintzatzen zan. Ta gaur? Ta ez pentsatu arazo ori Naparroa'n bakarrik gertatzen danik, gure errietan ere, orixe bera ikusten dugu. Donosti, Zumarraga, Beasain, Ordizi, Irun era abar. Erri auetara joan gabe ere, gure errietan euskerak, batere aurrera egiñ al du? Alderantzi nere ustez. Ez pentsa gezurra danik, Adibidez Azpeiti neretzat, Gipuzkoa'ko erririk euskaldunenetako bat, eta neuk ikusia euskaldun gurasoen seme-alabak gazteleraz mintzatzen dira askotan, eta euskeraz mintzatzea asko kostatzen. Ez bait-dakite!

Euskaldunak ba'gera, egoera ontatik irten bear dugu. Baiña, zer bide urratu? arloa emen dago, bidea aukeratu bear, biderik onena noski alkartasuna, alkartze ontan bait-dago indarra ta etorkizuna. Beste bideak urratzea, makurra izanik, egunaren zabaltzearekin batera galduko dira. Gure Erriak duen egin bear aundienetakoaren aurrean gaude; orregatik, egin dezakegun guzia, garrantzizkoa da.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

LABUR, EGIZ, ZORROTZ... GARRATZ

Ipar-euskaldunak oguzten dabelakoan idazkeran erabilten dan izki errubakoa da zorioneko«h» ori. Fonetika aldetik «g» edo «k» ez ete dan be esan du norbaitek. Dana dala, ego-euskaldunak oguzten ez dogun izkia da.

Krutwig'ek eta onen lagunak —irakurri alperrik galtzeko astirik ba'daukazue, «Vasconia»— asmatu eben ikurra da, marxismoleninismoaren ikurra. Euskaldunen batasuna apurtzeko bear zan Troya'ko zaldia, «internazionalismo»aren benetako laguntzaillea. Guk ori zala esan arren, gure errikide askok, itsu ta gor izan naian, siñesten ez! Etsaiak asmatutako guzurrezko salakuntzea ete zan bere, entzun gendun iñoiz...

Bein batean, Garitaonandia'tar Gotzon' engana jo eben h-zaleok, h'ak sartzeko aginduz. «Ez nik!», erantzun eutsen gure Gotzon' ek eta besteok orduan: «Alperrik zabiltz, makurtu bearko dozu, ba-dakigu 40 urte barru erabilliko ez dala, baiña, gaur, «baza politiko» bat dogu ta iruntsi bearko dozu!»

Gero, Baiona'ko batzarrak etorri ziran. An ziran, gaztetu naian, gure «izkuntzalari» trebe batzuk be. An erabaki ziran izkuntza ta kultura iraultzeko jokabideak ta elburuak. «H» ori ikurtzat arturik Ermu'ko ta Arantzazu'ko batzarrak eratu ziran. Euskaltzaiñen artean, batzuk bigun, beste batzuk «begi-onez» beste batzuk azpikeriz, «h» orren bideak urratu ziran. Azkenez, izkuntzatik kanporako biolojiaren sasi-arrazoiak bideko zirala, marxismoaren ikur ori sartu eben Euskaltzaindian be. Arantzazu'ko gela baten, «leninista» taldeakoak, burgesen txanpanagaz busti eben, eurentzat garaipena izan zan, erabaki a.

Arrezkero, «erabaki» ori zalditzat arturik, ikastoletan, «alfabetatze kanpaina'etan, aldizkarietan, ondatu bear ziran katoliko ekintzetan, mota guztietako oar eta orrietan: gurutzearen ordez igitaia ta maillua ezaugarri. Bitartean, ixilleko orrietan, argi agertzen eben ideolojia barri ori, baiña alperrik! Gure erritarrak eta batez ere gure emakumeak, alakorik entzun nai ez-eta... «Guzurra da, olakoak bi edo iru bakarrik dira!

Liturjiko batzarretan sartu nai izan eben, baiña alperrik. Batzordekoak erriaren zentzunari jarraituz, berezko batasuneruntz jo eben. Satorrak baiña, ez ziran geldirik geratu... zulogintzan azpitik-gora.

Azkenez, argi ta garbi azaldu euskuen euren barrua: «marxista-leninistak gara!» Emakume areik, «arra» etxean sartuta ikusirik: «olakorik, olakorik». Seminarioak usturik, abade ta abadeki bizardunak agertu ziran: «alienatuta bizi izan gara», «ez dago Jainkorik», «gurasoak zulora», «gora libre izatea», «gora sexu askatasuna», «mitoak kanpora...!»

Eskumatar abadeak, beste ertzetik gogor joteko eskean, erantzun bezela. Erdiko abadeak, danetik geienak: «Zer egingo dogu?» Aurrerakoi zintzoak: «Kontuz mutillak!» Aurrerakerikoi salduak: «ori, ori, ori!»

Bitartean, erri jatorrak ez du ezer ulertzen: «zer arraio jazoten da emen?» Emakume arein artean, batzu-batzuk: «Ni ere marxistea naiz», baiña bere senarra, «telefonikak eta iberdueroak» gora doazela ikusirik... pozik! Beti atzean geratzen diran bildurti sasi-aurrerakoiak: «Zer nai dozu? Beste iñork ez dau ezer egiten-eta!» Bada-ezbada, eurak kultura maillan, edo mezak —siñestu nai siñestu ez— antolatzen, eta «Eleiza zapaltzaillea ta Gotzaiñak astindu bear doguz»... ori bai dala ausartak izatea, mutillak! Gero, aldizkariak erdibitu dira. Batzuk, otsoari buztana ikusirik, gogor! Besteak, buruz-beera edo erdi-ipurdika. Franziskotarrak eta pasiotarrak... lozorro gozoan! «Mutil onak dituk! Ez yagok bilduriik!»

* * *

Gazte bateri «lur-emotea»: Ez da abaderik, ez gurutzarik. Ordez ikurrin gorri aundi bat, igitai-maillu ta guzti. Itzlariak: «Lagun, zuk egin zendun pekatu bakarra, errizaletasuna ta kristaitasunaren mitoak amaren bularretik edatea izan zan... ta gero itzaldi luze bat. Lagun artetik gizon bat aurreratu da, eta: «Au neurea da, neure semea, eta ez da beste iñoren gauza!» «Nai dozuenok etorri biar xx'ko eleizara, bere animaren alde izango dogun mezatara».

* * *

Ez goaz luzatzera. Gauzak argi dagoz ikusi nai dabenentzat. Ipar eta ego aldeetan, betiko itsu ta gorrak: «olakorik, olakorik! Noraiño eldu gera!» Baiña h'a aurrera. Orain, ikastoletarako dotriña-fitxen batzordeak, Bizkai'ko ordezkariaren iritzien aurka (?), Kristau ikasbiderako fitxak h'ez josi ditu. Dotriñearen aldetik ez dakit; pedagoji aldetik, astakeri itzala! Jainkobakoen aldetik, garaipena ta aurrera bidea. Gero, aker-sartzaille orrek, bear ba'da, Eleizea utziko du... baiña korotza bertan itzi! Ta, Gotzaiñaren inguruan dabiltzanak, aurratzak zapaltzen bezela edo lozorro gozoan...

H'agaz ardi galduak artaldera ekarri legikezalakoan? Ori orrela ba'litz, tira! Baiña «nastean» sartu garanok ez dogu olakorik siñesten... eta Donosti'an, batzartxo baten «txanpanagaz» ospatu dabenak bere ez! Eleizako agintariak, «complejo de culpabilidad» antzeko batek zorabiotuak... ixillik! Esnatuko ete? Orratz aundi bat sartu bearko! Naizta «kristonak» entzun... eskuan daukagu!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

INDARGABEKO ERABAKIAK

Asko idatzi ta itzegin da erabaki abei buruz. Ala ere ez da naiko izan. Sortu diran eztabaidak aldera utzirik, oraingo lan ontan erabaki oien azterketa egin nai dut beren legezko indarraren aldetik, au da, beren beartzeko indarrari begiratuz.

Erabaki abek «Euskera»ren XIII alean, Bilbo'n 1968, agertu ziran leen aldiz. Orain ere, 1971'ko alean, berriz agertu dira. Ale ontan oar bi jarri dituzte; geroago ikusiko ditugu:

«Arantzazu'ko jardunen ondoko agiria. Arantzazu'n, 1968'ko urriaren 3, 4 eta 5-ean egin ziren bileren ondorean, han izan ziren ponentzi eta elkarrizketak aintzat harturik, bukaeran bildu ziren euskaltzain jaun hauek: Manuel Lekuona, A. Dámaso Intza'koa, A. Irigaray, A. Irigoyen, Antonio M. Labayen, Pierre Lafitte, L. Mitxelena, J. San Martin, José María Satrustegi eta L. Villasante, eta batasunari buruzko argi-bide hauek agertzea erabaki zuten:

«2) H'ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdibide bat aukeratu da hasteko: alegia, BEGI ONEZ IKUSIKO LUKEALA EUSKALTZAINDIAK letra hori bi bokal berdin nahiz zeberdiñen artean erabiltzen hastea».

Oarra: «Ohargabez ez zen hemen jarri xehetasun beharrezko bat, guztien gogoan zegoena, bestalde, alegia: bokalen arteko h letra ez dela beti eta itsu itsuan jarri behar, letra hau mintzatzen eta idaztean erabiltzen duten euskaldun arabera baizik».

Oar ori erderaz ere jarri dute 1971'ko «Euskera»n. «...sino según reglas que hay que deducir del uso hablado y escrito de los que PRONUNCIAN ESTA LETRA». Au da, bestaldeko euskaldunak: laburditar, benapartar eta zuberotarrek.

Emen Gipuzkoa'n ez da mintzatzen letra ori. Bizkaia'n ere ez. Ala ere emengo idazle batzuek H ori erabiltzen ari dira. Iñork ez daki zertarako.

Euskaltzain batek esan dit: «Ni ez naiz H'zalea baiña Euskaltzaindiaren agindua betetzeko erabiltzen dut». Arritua geratu naiz. Ez dut ikusi, orain arte, olako mandamendua.

Askoentzat berdiñak dira erabakia eta agindua. Eta orrela zabaldu dute H'zale batzuek. Okertasun aundian daude orrela uste dutenak, uste ba'dute.

Zer da erabaki bat? Batzar batek artzen dun bidea. Iru motetakoak izan ditezke: 1) Zerbait egitea agintzen dutenak. 2) Zerbait galerazten dutenak; 3) Ezer agintzen ez dutenak.

Zerbait agintzen ba'du, danok egin bear dugu, nai ta ez, bestela Euskaltzaindiaren aurka izango giñake. Zerbait galerazten ba'du, danok kontuz ibilli bear dugu gauza ori ez egiteko, bestela Euskaltzaindiaren aurka izango giñake.

Obeki ulertzeko erabaki batzuek ezarriko ditut: «Emendik aurrera danok eskubitik ibilli bear dutela, erabakitzen da». Au da agindu bat. Danok bete bear dugu. «Goizeko bostetatik zortzietaraño ondartzera joatea debekatzen da». Au da agindu bat. Bete bear dugu danok. «BEGI ONEZ IKUSIKO LUKEALA jendea kaletik ibiltzea erabakitzen da». Au ez da agindu bat. Iñor ez du beartzen. Ez du indarrik. BERDIN EGIN DU EUSKALTZAINDIA'k.

Zergaitik? Nola gertatu da ori? Agindu bat lortzeko, batzuek, Arantzazu'ra joan ziran. Beste batzuek eragozteko. Aiek H'aren aldekoak eta abek H'ren kontrakoak. Euskaltzaindia bi alderdietan zatitu zan. Euskaltzaindiak erdibide bat artu zuen, berak esaten dun bezela: ez agindu, ez galerazi. Ori izan zan, artu zuen erabakia. Erabaki bai, agindu ez. Bakaoitza bere tokian geratu zan.


Bi edo iru egun geroago Urdain'era joan nintzan nere adizkide Satrustegi ikustera. Bera Arantzazu'n izan zan. Nola izan ziran eztabaidak berak esan zidan. Gutxi gora bera abek dira bere itzak: «Gogorra izan da; ez dakit nola, Jaungoikoari eskerrak, formula egokia bururatu zitzait: «begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak...» Eta oni eskerrak kalte aundiagorik gabe batzarra bukatu zan.

Au da ixtoria, istoria txikia. Au da Arantzazu'ko erabaki famatua. Eta berarekin H'ren auzia gure artean sartu da Ortografiaren Batasuna desegiteko.

Eta ori guzia Batasunaren izenean.

ESTORNES ETA LASA'TAR JOSEBA

EDARI TA AKEIT ETXEA



AURE

Gozari ta azkariak

Ascao, 12 - 24 90 89 Urrtz.

BILBAO

ALKAR NAIZ ELKAR

ERABILKETA EGOKIA

Elkar, alkar itzak zer esan nai duen eta nola erabilli askok ez dakie: lagunartea esan nai duela esan giñezake. Zu ta ni, bi gera; bata eta bestea, elkarren lagun gera. Biok elkarrekin bizi, edo ez bizi, beti adiskide gera.

«Alkarrekin bizi bear *gera*», ez dago ongi esana. Alkarrekin bizi bear *dugu*», esan bear litzake. «Ez *gera* alkar ezagutzen», ez dago ongi esana; «Ez *dugu* alkar ezagutzen», bear.

«Gu biok elkar maite dugu»: «elkarrekin adiskide gera»; edo, «alkarren adiskide gera».

«Alkarrekin anaiak al zerate?» «Anaiak ez baiña, alkarren adiskide gera ta alkarrekin maiz ibiltzen gera».

«Adiskideak elkar ikustean, elkarri eskua pozik ematen diogu». Amar lagun gera, baiña alkarren artean ez dugu asarrerik; elkarrentzat esan txarrik ere ez beiñere».

«Elkarrengana biltzen gera amarrak, guziok pillotari geralako». «Elkarrekin bizi; begian onak eta alare elkar ezin ikusi dute». (Elkar, alkar'ek zer esan nai duen ez jakitea baiño makurragoa da ori!).

JARIO, DARIO ADITZA

Ona beste itz bat, nere ustez ongi ezagutzen ez dena. Ta berorrengatik idazle on batzuen lanetan ere oker deritzaidana.

Jarioa, gauzen baten ixurkia da: ontziarena, oial edo soiñeko batena, edo-ta zauritu batena:

«Olio-ontziak jarioa ba'du, olioa tantaka bai dario». «Kupel orren jarioa nabari da, ara or ixuri zaion ardoa». «Zeriolako baztarturik neuken; baiña semeak ez jakin-eta...»

«Gizon orri okotzetik bera lerdea dario». «Kaxo; sudurretik mukia darik». «Izardia kopetatik darizula zatoz-eta».

S eta Z

Gipuzkoar eta bizkaitar idazleen artean, askotan arkitzen ditut, z ta s izkien nasketa edo utsegiña:

Z'az auek dauzkat jasorik; nabarmenenak:

«Entsuteko *entzuteko*'ren ordez. «Ikuzi» begiekin *ikusi* esan bearrean».

«Asi» «Arroza uretan lez AZI ta aunditu egiten da» bear danean.

«Azi», «Lanean ASI gera» danean.

«Sail», iru-lau edo geiago, lagun edo gauzak, daudeneko. «Zail», erreza ez dana.

«Sama», bizkaian lepo; «Zama», bilgoa dugu alde guzietan: belar-zama, egur-zama ta abar.

«Su», erretzean sortzen da; «Zu»: «*zu* zera, egurra *sutan* jarri duna» Aztertu dezagun iztegia alperkeri gabe!

KALPARREGI

Muxika'ren iztegia

Aita Muxika langille porrokatua da. Goizetik gaueragiño, aspertu gabe bere lanari ekiten dio. Bere iztegi erdera-euskerak nolako mesedea egin dion Euskalerri'ari ez da erraza esaten. Euskeraz idazten dutenak ongi dakite nungo arrobira jo, beren burua euskal itzekin jantzi nai dutenean.

Iztegi ori egiteko zenbat neke, zenbat izerdi eta buruauste ez ote dituan eraman Aita Muxika'k!

Ez dakit ziur zenbat ale atera zituen, baiña 8000'tik gora zirela uste dut. Denak salduak dira, bat ere gelditu gabe. Orain Aita Muxika'k iztegi orren bigarren argitaraldia egin nai du. Pixka bat laburrago, 1000 orrialde dituela. Bearrezkoa zen, liburuaren eskaera aundia bait zen.

Zein asmo du geroko Aita Muxika'k? Ez dakigu, baiña gu, eske gatozkio Aita Muxikari. Arren eta arren, bere iztegi aundia itzuli eta euskera-erderaz (vasco-castellano) eman dezaigula.

Orren bear izugarria nabaitzen bait dugu. Azkue'ren iztegi mardula zenbait pundutan motz gelditu da. Sarritan gertatzen bait zaigu, irakurtzen edo idazten ari gerala, Azkue'ren iztegian itz bat miatu eta billatu eziña.

Ba dakigu Azkue'ren iztegia osotzen ari direla. Bere egunean iztegi jori eder bat emango digute; ez dugu zalantzan jartzen. Baiña noiz izango da ori? Urruti xamar ikusten dugu egun ori.

Muxika'k ostera, bere lana egiña du, esate baterako. Zergaitik ez egin, leenbailen gaiñera? Euskaldunak gose egon bear al dugu? Liburu ori erruz salduko litzake, jende guzia olako iztegi baten zai dago-ta. Diru kontuaren aldetik, bada, ez luke galerarik izango, aitzitik baizik.

Ara ba, Aita Muxika. Zure erantzunaren zai gelditzen gera. Tamala litzake zu il eta Euskalerri osoa euskera-erdera iztegi orretaz gabetua geldituko ba'litz.

KEPA ITURRIOTZ

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.


Apartado 18

E I B A R

GAZTE

Joseba Sagarzazu'ri

AZKEN - AGURRA



Agur, Joseba Sagarzazu adiskide: Oraingoz, negar-erri onetan darraigunok gogoan zaitugu. Zuk, iñori, ezta zeureeri ere, azken-agurrik ematerik izan ez dezun arren, zeurea bete dezu. Biziak jolas bezela egin, eta, lenbailen, berekin eraman nai izan zaitu.

Bai, zeuk sarritan zeniona egi biurtu da. Ez zure esaera egi biurturik ikusi nai zendulakoan, bañan, bildur ziñan bezela, bukaera motxa izan dezu.

Aspalditik aitatzen zenduan zure biotzeko miña, bañan, zure ondoez orri, iñork ez genion orrelako garrantzirik ematen; zerbaiten azpian, zure aitzaki pixkat ez ote zan izango, esaten genizun.

Zure agurra motxa izan da, bañan, osoa, betea, bat-batekoa...

Euskal erriari, ain maitea zenduan Zestua'ko txokotik, al zenduna ematen saiatu ziñan. Euskal zaletasuna bazterretan berotu nairik egin zenitun aztarkagaitik zer esanik ez. Zestua'n Ikastola sortzerakoan, eta gero, geiena alegindu ziranen tartean ziñala? Ori ez dakienik bai ote?

Eta zure lantxuak: lenengo Zeruko Argia'tik, eta AGUR sortu ezkeroztik, asteroko onetan azaldu dituzun lanak, berak naikoa desate.

Zer geiago esatea nai dezu? Guztia alde batera utzita, aldegin diguzu. Bañan, zure lana ez da alperrikakoa izango. Zuk urratutako bideeri jarraitzen saiatuko gera. Zure eredua jarrai-bide artu nai degu.

Etxekoak eta ingurukoak atsekabean utzi gaituzu, bañan, kristautasuenean jokatu zenduanez, onezkero, zeruko atsedena gozatzen izango zerala ziur gaude.

Agur, bada ba, Joseba adiskide, ta, gure otoitz bearrean izango ba'ziña, zure alde Jainkoari eskatuko diogun antzera, zuk eska ezaiozu, orain aukera daukazunez, lurrean ain maitea izan zenduan euskal erri ta euskeraren alde.

Ta, gu pekatarion alde ere...

TXIGUA

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 18
21-15-07 urrt. **BILBAO-5**

Sagartzazu Joan Zaigu

BAI! Olan ekarri omen du izparringiko orri beltzak; ene adizkide zanaren Illetara ni ezin eldu. Neronen barru au itzal batekin beterik dago; ezin azturik.

Ura, gizonik ba'zegon, gizon ura; euskaldunik ba'zegon, euskaldun ura; langillerik ba'zegon, langille ura, adizkiderik ba'zegon, adizkide ura.

Joan zaigula, Joseba Sagartzazu geiago ez degula gure inguruan ikusiko pentsaurik, ameslari naizela irizten zait: «ez, ez... ori ez da egia, esnatu gaitezen...», baiñan... tamalez, esnarik gaude ta orrela atzoko eguna igaro genduan adizkide talde baten barruan; batzuk illetara elduak ziran; beste batzuk, ene au barruan dalarik, ez gendun jakin, eta atzoko egunez esan eta esan ori.

Sendiko bat edo alako adizkide bat galtzen danean, orduan gogoratzen gera zer galdu degun; orrela ba, orain gogoratzen gera nolako adizkidea galdu izan degun. Orregaitik ba, idazti labur au, AGUR'eko arpideduneri tamal au adierazte arren.



Sei t'erdiak ziran...

Bere sendiari, gure samin guztiarekin, naigabeko agurra, eta danori, Otoitz bat, kristiñau zintzo zan adizkide onentzat.

ZIÑUA

Berriz'ko Parroki-alkartea

ERLEJIÑO ERAKUSTEA DALA-TA

1.º MUNDUA eztago beti sen baten, aldatu eta aldatu baiño, eta aldaketa onek danok artzen gaitu, bai aurretik goazenok eta batez be atzetik datozenak. Gurasoen ume denporatik seme-alaben umealdira, gizaldi bateko aldakuntzea dago, gauzak euren bidetik joanda. Jakintsu batek diño: «TAMALGARRI DA GIZONEN ARTEAN JASOTEN DANA, SEME-ALABENTZAKO ESKOLAK DAGOZ ETA GURASOENTZAKO EZ OSTERA». Bizitzako esperientzia ezta ezi-edukatzeko naiko, eta arlo ori ondo eroateko, lenengo argitu ta ezi bear dabenak, gurasoak dira.

2.º Umeen kristau ezikuntza, lenengo ta beiñen kristau gurasoena da, eta begira, persona bakotxaren bizitzan, geien irauten dabena eta geien agertzen dana, etxeko ezikuntzea da, esan legike Jaungoikoak berak be, aparteko eraz bedeinkatzen dabela. Maixu, abade eta katekistak obeto gertauta egongo gara, baiña euren ordezko lez gara.

3.º Seme-alaben ezikuntzarako lekua, gurasoen etxea bera da, eta maixu eta ezitzaille, gurasoak. Umetxoak lenengo urteetatik ikasi eta artu bear dabee euren etxeetan, etxekoen artean egin bear daben, bizitza gozo eta maitekorra; olan danen artean, umetxoen gogo-biotzak ezi eta ontzeko, egoki eta ongarria izango dan, ambiente bat, egiten da.

4.º Umeak etxean entzun eta ikusten dabena, artu eta iruntsi egiten dabee, eta gurasoak zelakoak, seme-alabak be euren antzekoak, «umearen zentzuna, etxian entzuna», gogoratu gurasoak, zuen etxeetan umetxoentzat, edo mesedegarri edo kaltegarri zaree, zuen etxean egin, edo esan, edo egiten ez dana, umeak jasoko dabee, zuen eurenganako maitasuna izan dadilla ba, argia eta arduratsua.

ONEK OLAN IZANIK, esan bear dautsuegu, lengo katekesisa aurrera jarraituta, beste katekesis bide bat be artzea pentzau dogula gure parroki onetan. Au da, ETXEKO KATEKESISA. Etxe bakotxeko aita, ama edo beste persona batek, etxean bertan katekesia emotea, orretarako parrokiatik bear dabeen argibideak artuta. Era orretan, mesede bi jaritxiko dira, lenengo umetxoai kristau ikasbidea zabaldu eta katekistia bera aberastu, erakusten dabezan gauzetan geiago sustraituta; ta bigarren, etxekoai yagoken egin bearra bete... Ze bide egokia dan au gure parroki onetako eleiztarrak argitu, bizkortu eta aberastuteko, eta zelako poza sartuko litzaken zuen biotzetan! Ezta au guk asmatutako barrikeri bat, Eleizan, era onetan edo beste era baten, beti izan dana baiño; eta atzetik ekarriko leuskuguzan mesediak ikusita, zelan itxi geinke edo itxi zeinke zuena dan eginbear au? Konzilliuak kristauok jaso zaitue, baiña ez goratzeko bakarrik, zeuen dignidadea ikusita, eginbearrak be obeto bete dagizuezan baiño. Kristo'k, Eleiziak, geure eskuan ipinten dauskuz bere ondasunak, lenengo guretzat artzeko eta gero beste batzuen artean zabaltzeko, ez ete gara konprometiduko zeregiñ eder onetan? Eta ez ete gara konturatu geure erabagiaren zain dagoala Jesukristo, bere asmoak gure artean zabaldu daitezan? Zela obeto erakutsi Jaungoikoarengana biurtuta gagozala, gaur be entzun dogun lez, eta pozez beterik bere siñismen gozoa biotzetan dogula, beste batzuen artean be zabaltzeko?... Arazo onetan parte artu gura dozuenok, emon zeuen izena ainbat lasterren, egingo dozuen egitekoa, zeuntzako onuragarri izango da lenengo, gero enparauentzako, olantxe zuen izenak Jaungoikoak Betiko Bizitzako Liburuan ipiñiko ditu.

BIBLIA

Biblia da Jaungoikoak guretzat egindako liburutegia; asko dirata. Liburu orretan Jaungoikoaren Berbia dago guri bere asmoak agertzeko, kristautasun eta Eleizak ortik dabee auren izatea. Kristauon artean ostera, ez-jakin aundia dago Biblia'tzaz. Kristau izatea eta eleiztar izatea zer dan jakiteko, liburu orretan daukagu bide egokiena, baita bizitza bera zer dan eta zelan artu bear dan konturatzeko be. Ill onetan asten da ikastaroa, kartaz BIBLIA zer dan alkar-izketa batzuk egiteko eta lagun arteko pozez adiskidetzeko. Ze egoki letorken ikastaro au ezkontzarako gertatzen dagozanentzat! Ezkongaietan zabiltzenok, dei au, batez be zuentzat ez ete dozue artuko? Era egoki au ez galdu, dirurik ezpazendukee, nunbait zeozer izango litzake.

KARMELE

KONTU KONTARI

ANTI MAS...!

Lengo atze denporara jo egin biot ba gaur be. Neutzet beintzet, oinguek ez dauke zer esan asko. Lengora, lengora nere betiko jokue.

Oiñ berrogei urte inguru, gure plaza-barrixen «gatzbana» izete zan. Au, gatzbanau, gure ustez, soiño jotailliek ipiñiko izena zan. Bakotxak dantzan bere gatza edo «salero»a emotegarren. Alan edo olan izengo zan, bai.

Domeka arratsaldie ba. Gatz-bana, eten barik dabill gure plaza-barrixen, zaparrada baten. Oratu alkari gerri-bueltatik ta neska-mutillok, bost zentimetroko miñe atara ta or dabiz «pasodoblien» zapatok kastau arte, gora eta bera. Onek «pasodobliok» zenbat «deklaraziño» edo biotzeko maitasun agertziok egiñ dakuek zien... Beti, gitxi gora bera, oneta:

—Zu, Joxepa, ba-dakizu jentiek zer dabillen ago miñien...?
—Zer, Erramon, zer diñue ba...?
—Nobixuek gazela...!
—Jesus, Erram...!
—Ixillik egon zaitxe, Joxepa. Nai dozu jentiai errezoie emotie...?
—Tire, tire...

Andik sei edo zazpi illebetera, deixek, arriue, ezkontzie...

Dantzarixok, or dabiz, aguok siketu, miñe be, aiñbeste denporan aixe preskue artzen ez, bustixe... «Pasodoblie» bostgarrena joten dau gatz-ban'ak, eta...

Korru, korru galanta, neskat eta mutill lotsorrak egindakue, begi-begire, dantza bueltan. Mendi ondoko neskatilla bat —neska ederra ta nire lagun ona bera— an euen korruen begire «pasodoble-buztarrixorri». Eta trankillen euenien, eldu jako albora kanpotar bat, mutil gastie, gorbeta gorri-zuridune, alkondara loratsue, sama bueltako zati briz-brize, txaketa-jake orizkie, praka estu tiretuek, bibotetxu irugarren betula irudi...

Neska orrek ikusi eran «señoritxuau» dardar-dardar plantau jaku, eta dardara geixa barriz, entzunez:

—Señorita, bailamos...?

Neskiek, nun egonik pez. Atza-atzeka be eziñ alde... Aurrera juen ezkero, bibotetxu zaiñ, eldu ta tatarrez pasodoblera eruteko...! A zan estuasune, bai benetan zorrotza. Eta, gaiñera, mutill orrek ikusten eban neska ederra, ta ostera be:

—Señorita, bailamos...?

—NO, no sabo, anti más me mario, me pongo tonta, boba, y... bonbitxo...!

Lenengo autobuse Tateneko aurrien artu, Elgoibar'ko trena, eta geixa a mutille beintzet Markiña'ko plaza-barrire ez da sekulo eldu. Etxera eratu eran, esango ban:

—Anti más, anti más, mareo, Ay, que mareo...!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

"EUSKALDUNAK"...eta SUGEA...

Masiatzaille garratzak alperrik ariko dira «Orixe» ren «Euskaldunak» Poema, euskeraz egundaiño egin dan bertsoaldi nagusienari aitzeki ta maitzekiak billatzen. Arrokeri ta gogo gaiztoz kritika egin ezkero, akats eta utsalen ordez, zorakeria ta irudimen baezpakoak asmatzen edo ikusten dira: argitasuna utzirik itzal beltza besterik nabari naiez.

Au gertatu zaie «maisu» usteko batzuei beren iritziak an eta emen eman izan dituztenean. Ez diet ukatuko letradunen errpublikan ori egiteko duten eskubide osoa, baiñan nereaz jabeturik, gai ortaz barruak agintzen didana berriro esan bearrean arkitzen naiz.


Eta EUSKALDUNAK poema berrirakurriaz eta maitasun joranez begiratzen zaiolarik, gero ta geiago, aberastasun berriak agertzen dizkigu. Ez nazute iritzi ortan bakarra. Ez! Euskal jatorriko arjentinatar gizon jakintsu izan zan Dr. Juan J. Najera jaunak «Euskaldunak» poemaren erdel itzulpena irakurri ondoren aren balio orokor eta iraunkorra antzeman zion: «inmortal Poema» daituaz Izadi-Natura'ren Historia'rentzat iturburu ugaria. Erri-jakituri, mendi-aldeko ikus-begi, gizonen eta zienziaren azterketa egiteko ta euskaldungoaren azterketa sakontzeko biderik egokiena.

Dr. Najera, bera Izadi-jakintzan eta bereziki «ofidologia» suge-jakintzan entzute aundiko maisua izan zan. Bere etxean, suge, ziraun, narrazti ta antzeko piztiak bizirik gorde oi zituan auen bizi moduak zaindu ta aztertzeko.

Gizon argidotar orrek Buenos-Aires'eko «Instituto Americano de Estudios Vascos aldizkarian, gauza jakingarriak erakusten dizkigu.

«Euskaldunak» poemaren XI kantaldia irakurri zualarik, BELARREKOAN deritzana MIKEL'i suge batek egindako ziztada ta ondorengoak oso gogoko izan zituan:

Mikel'ek... beatzean suge-zizta
Nun eta nola esateko
kenka artan betarik ezta...»



«Coronella Austriaca» deritzan sugea

Bai... suge-gorriaren zizta! Gure Dr. Najera bereala zer nolako suge-mota izan zitekean aztertzen abiatu zan eta bai garbi azaldu berak ondo ezagutzen zuan «CORONELLA AUSTRICA» deritzan motakoa zala. Suge bizkar-gorrixka, urduri ta asarrekoia, beti ziztada egiteko gertu dagoana naiz Dr. Najera'ren etxe barruan bizi zalarik arras eskurakoi ta otsana izan. Guk ez genekizkigun xeetasunak euskaldun jatorriko arjentinatar jakintsuak ematen dizkigu, esker onez artzen ditugunak. Dr. Najera'ri atsegin izan omen zitzaion Mikel'ek oilloen txuringoan beatza sartutik nola ziztadaren edena xurgatu zioten erabat sendatuta geldituaz.

Au da «Larraun'go sendabidea»... Euskaldunak poemaren xeetasunetaik bat. Erriak eta Izadiak beti erakusten digute zerbait. Jakintsuek arrokeriarik gabe an ikasten dute.

Eta gu ez jakiñok ikàs zagun bieongandik.

ANTONIO M.ª LABAYEN

BIDAI-KALEA

Zazpi-kaleen azalpena amaitu ondoren, Bilbo'ko Auzo-zarragaz jarraiturik, ospetsuena ta askoren iritxiz argitsuena ta garrantzirik aundienetarikoa, Korreo edo Bidai-kalea dogu. Gaurko mintza-bidea, ba, kale ontaz izango da, ta geroko baten, besteren bategaz-edo, gure lantxo au alik ondoen biribilduko dogu.

Bidai-kale izen ori, Bilbo'n lenengoz izan ziran Bidari ta Urrutidatz etxeen bidalgoak kale ontan erroturik egozalako, etorri jakon ziur asko. Ordutik urteak zear izen orrek jarraiturik, gaur be aldatzeke darrai. Areatza'tik asita Bidai-kalearen sarreran bertan, bidalgo ta lantegi oneik egon ei ziran Orduko Bilbo txiki-ttipiko bidari joan-etorleak ezeze, at-kanpoko bidai-ontzi ta Atxuri'tik barna mandatarien ta zamarien bitartez, Erki barrutik ekarririko eskutitzen bidai-ekarle banatzailleak ere guraiñ lan izango ebelakoan gagoz. Ez egoan orduan, ba, ez bidai-trenik ezta egazkiñekorik ere gaurkoan lez.

Edestiari jarraitekoan esan bearrean gagoz, lentxoago baten, Jagoba Deunaren kalea izentatua izan zala, ba, gaurko Bilbo'ko Eleiz-buru ontatik, nola Bidebarrieta'tik baita Korreo-kaletik ere Areatza'ra joateko bide onenak ei ziran. Areatza orain be bidegurutz garrantzitsua ba'da, orduan zalantz gabe ezinbestekoa ta guztiz premiñazkoa ei zan. Onetan danok bat diñoe.

Bidai kale ontan be kokatu ziran leiñargiko jaunetxe ta Bilbo'ko sendi gorenengoak. Euren artean ta aroaren gardiz nabarmena Gortazar'ena ain zuzen. Jauregi onek goiko aldetik ta ataurre erdi-erdian etxe-mazmarro bat izkillu ta guzti eroan. Kale bertakoak ziran baita, Salzedo abizenekoak, Arakindegi kalearen (gaur, Banco de España) mungan. Emengoak bardin Murga'koak mazmarro-izkilluekaz ere, Anpuero'koak ta atzenik Jaspe'tarren jauretxe bikaiña. Izen au ez jatorkion aiton-semeen leiñargizko abizenez, bai ordea jauretxearen aurre-aldeko arri-nabar edo jaspi-arriagaitik ziur-ziur.

Kale ontako salerosketak beti, len bezain orain, ondore aundiko ta benetan goratsuak izan dira. Kale apaiña, dotorea, guztiz argitsua dogu. Saltegiekaz beste ainbeste esan desakegu. Dana dago argi ta garbi. Pozez barru-kanpotik ibillalditxoa egin lei. Orain gogoratzen yat mende asierako, gure Bilbo txikia izan zaneko oitura polit bat. Orduan zineak eta, urri egozan. Igande neguak batez bere luzeak ziran, ta gaztediak otzik izan ez arren, ibilli bear, edo dantzan edo egurazten. Erri txikietan be bardin samar. Esate baterako, Otxandiano'n neguko jai ta igandeetarako batez be, toki aparta, aterpeko bat, Pasia-leku deritxona, dabe. Olan gutxi gora bera beste errietan be, izenak bardiñak izan ez arren. Gazteiz'en be, ia egunok arte, gaztedia jai ta igande goizetan eguerdirarte Dato kaletik zear gora ta bera egurazten zan. Oraindikan be askotxok ba-diraue.

Bilbo'ko Korreo kalean bardin izaten zan. An batu oi ziran neska liraiñ ta mutil gazte yayoak, neguan ezezik, baita udabarrian, udan ta urtearo guztietan. Geroko baten, Bilbao gero ta andizabalagoa zala-ta, oitura au galdu ez, baiña bestalderatu zala esan bear dogu. Gran Via'k edo Bidezabal luzeak leoiaren partea arturik, gaztedi ta bardin sasoiko notintz geienak, Nerbio'n ibaiaren bestaldera eguraztera etorri ziran.

Ori ta guzti, Bidai-kalea beti argitsu dirau. Gabonetan atan be ez dautso ondamurik ez Gran Via'ri ezta Bilbo barriko beste kale garrantzitsueri be. Enoa gudaldian izan eban gora aundia esatera. Bilbotar geienak dakigu. Ezta bere bertako saltegiak —geienak oiñetako saltzailleak— bat ezik, aipatzera. Euskerazko lubirutegia soil-soillik izentatuko dautsuet oingoz. Verdes idazti etxe barriztuaz diardut. An be aurkituko dozue gure asteroko AGUR au; «Karmel» eta «Goiz-Argi»az geien bat, Bizkai-Gipuzkoa'ko, ta iñoiz beste euskalkietako euskalki garbien eta euskerea batuten asteko bear dan sustraiaren iturri gardenak diran aldizkari oneik. Irakurri egizuez astero, illero, ta artetik izatekotan gure betiko Kresala, Garoa ta onelako ta h bako ta naste bako ele-berri ta irakurgai onuragarriak.

Euskerantoagaz iñora ez goaz, bai baiña guztien barregarri izatera. Batu bearra dogu, baiña buruz eta astiro jokaturik. Benetako euskerea bera opa dautsuet danoi. Bakoitzak berea ondo ba'daki, besteak obeto ulertuko ditu. Borondate onagaz ez da eziñezkorik. Olan jardutekotan poz-agurrak damotsuedaz.

Beste bat arte ba, ta AGUR'etik agur.

ARREGI'TAR JOSU

ONA

ta

RAM

EZNEAK

ZUK

ONARTZEKOAK

DITUZU

MATXITXAKO VI

EDESTIARI JARRAITUAZ

Euskalerri'ko itxaso-besterretan, antxiñeko gizaldi edo eunkietan, itxas-lapurrakaz jazoriko burruka eta gertakuntzaz, gaur-arte, oso gitxi idatzi da; eta idatzikoen artean geyenak, ezjakinkeri bidez, gure aurkakoak dira, baiña, gure arteko Euskaldun gorengotariko bat, ETXEITA'TAR JOSE MANUEL, Mundaka'ko seme zintzo, itxas untzi-buru entzutetsua eta Manila'ko azkenengotariko Endore jaunak, bere argitasun jakintzeagaz, JOSECHO irakurgayan, egokiro azalduten dauz itxas-alde onetan ibilli diran itxas-lapurren gora-berak, eta onetara diñosku:

1. «Itxaslapurrak agertu dira,
Gure itxasbasterretan,
Ortik-emetik egiten dabe,
Guztiz zoli lapurretan,
Ontzi luze bat ei darabille,
Belan zein erramuetan,
Arrantzaleak bildurrez dabiltz,
Itxasaldeko lanetan.

Txarto egiñak ekarten ditu
Nekaltasunak Munduan
Itxaslapurrok nastako dira
Arrantzalien Amuan.

2. Untzi batzuri kendu ei-dautzez,
Janaria ta diruak,
Bai arrantzale askori bere,
Txalupako arrantzuak,
Ondarroa'ko txalupeagaz,
Izan ebezan autuak,
Gizon bi il da, arrain guztia,
Eroan infernukoak.

Txarto egiñak...

3. Arrantzaleok alkartu ziran,
Batu zan euren batzarra,
Erabagiten zer izango zan,
B'etorren Aprika'tarra.
Esaten eben neurtuko dogu,
Orren baltzorren indarra,
Azpiraturik jaurti bioguz
Itxaso ondarretara.

Txarto egiñak...

4. Orretarako ekarrikoguz,
Txalupetara arriak,
Baita ezpata-makillak bere,
Atarateko begiak.
Datorreneko, ingurututa,
Jarri txalupa guztiak,
Zuzendukoguz orduan orren
Lapur iltzalekeriak.

Txarto egiñak...

5. Joan zirean itxaslapurrok,
Kalako txalupetara,
Arin da zoli inguraturik,
Estropadako antzera,
Arrikadakaz arri-euria
Jausten zan euren ganera,
Zauriz beterik sartu zirean
Upategitxo batera.

Txarto egiñak...

6. Artu ebezan arrantzaleok,
Euren ezpata-makillak,
Aprika'tarren untzi aretan,
Barruraturik mutillak,
Eroan eben Bermeo'raño
Itxasaldeko ongillak
Emon eyoen nekaltasuna
Auzien erabagillak.

Txarto egiñak...

7. Ondarroa'ko arrantzale bi,
Il dabez itxaslapurrok,
Anxe ber-bertan nekalduko'guz,
Ziñoen erabagillok.
Ainbat ariñen Ondarroa'ra,
Eroan geztokitarrok,
Arin, bai arin, ordainduteko,
Emendik daukezan zorrok.

Txarto egiñak...

8. Bermeo'tarrak laster eroan,
Ebezan Ondarroa'ra,
Erri onetan deadar baten,
Ziñoen danak batera:
Arin, bai arin, iltzale orrek,
Eroan urkatutera;
Bana-banaka urkatu ziran
Orra euren amayera.

Txarto egiñak...

Bermeo'ko kayan eta urian bertan, egunero jazokun bildurgarriak gertatuten zirean: ikaragarrizko lapurketak, eriotzak, guraso eta seme-alabatxuak bananduak, umetxuak aldenduak eta ezin geyago ikusi, ondasun eta aberastasunak kenduak eta txirotasun illunean jausi, eta orren beste negargarrigaz ezin leikean erri bat geyagoan menperatu, esan leikean erri osoa noiz ilgo egoala, baiña azkenez, erritarren zanak irikitan asi zirean, eta erri guztia bat egin-da, «il edo bizi» didar sutsuakaz danak gertatu zirean itxas-lapurrok zuzitu eta beti-betiko amaituteko.

Eta itxas-lapur ankerraen aurka egiteko BATASUN ANAIDIAK sortu zirean: arrantzale, itxastar eta baserritarren artean bizkortasuna eta kementasuna erne zan, danen artean ez egoan gizonik «atzera egingo ebanik», guztien oyu edo didar sutsua izan zan: «il nayago», eta olantxe, dan-danak bat egin da, aurkeztu zirean itxas-lapurrak birrindu, ezereztu eta gure itxasoetatik alde-eragin eta gure erri eta itxasoai azkatasuna eta gentza erakarteko.

(J. l, jarraituko da).

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK — Martin Aldazabal TENDERIA, 3 — CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Zeleta'rekin omenaldian

Bere bidetik joanik dira lasartear gazte trebe auek eratu zizkiguten jaiak. Aste oso baten barruan, jaiegitarauaren zati guztiak ongi beteak izan dira. Nolabaiteko idazle onek, egia esan, ez zuan joaterik izan astean, baiñan Urrilla'ren amabostean goiz-goizetik Lasarte'n zan euskaltzain eta euskaltzale jator onek merezi zuan omenaldian bere tokia artzera.

Eleiz-nagusiaren ateetara iritxi giñanean, orduantxe zetorren Zeleta jauna txtistulari eta beste zenbait lagunez inguratua. Eleiza, bete-betea arkitzen zan, exerlekuak gaiñezkatuak eta anitz entzule zutik.

Erri-meza asten da. Apaizak jai aundietako jantziak soiñean. Lasarte'ko parroko jaunak itzaldi unkigarri bat ematen digu, omeneztatua dan Zeleta'ren bizikeraz, batez ere Lasarte'n bizi izan zan gazte aldikoa, xeetasun aski emanaz. Koruko soiñuak eta abesti ederrak etenaldi bat dute, Etxeberria eta Lazkano bertsolariei tokia emanaz bertso batzuek abesteko. Meza erdian, txalaparta otsak ba-damaio uneari alako goitasun zoragarri bat. Lau dantzari trebek dantz dagiote Jauna'ri omenez eta eskerrez. Jauna artzen gazte asko, bai gaztedi eder bat. Eta eleizkizunaren edertasun ura borobiltzeko «Agur Jaunak» abesten degu, eleizatik irten aurretik. Gero kalean, malko-gogoz begiak dituala, auxe entzuten det Zeleta'ren aoz: «Onelako meza ederrik ez det sekulan entzun».

Ba-degu orain tarte bat etorri diran adiskideak agurtzeko, beste zenbait ezezagun ezagutzeko. Eta amaikaterdietan Lasarte Antzoki'ra.

Barkazioa eskatzen digu Pedro Artetxe'k, aurkezlariak, ez omen da izlari-ta. Ba idazle bezin izlari jator azaldu ziñan, eta jarrai, ba-dezu doairik-eta. Gero, On Manuel Lekuona'k itzegin zigun Zeleta'ri buruz, berak dakian trebetasunez. Onen ondoren Zeleta'k, begiak ñir-ñir biotz dardaraz, betirako joan zaigun Lasarte baten ixtori laburra, baiñan guztiz ernagarria eskeiñi zigun. Zenbat oroiz gozo Euskalerria'ren zati loretsu zan Lasarte artan! Etxeberria eta Lazkano bertsolariek emandako saioaz, Artetxe'k zuzendua, bukatu zan antzokikoa. «Erketz» dantzari taldeak, neska-mutillak, txistuak emandako otsez euskal-urratsez bete zituzten karrikak.

Ordubietan «Txartel Jatetxean» bazkaria. Azkar eta ongi. Bazkarirako, Anoeta'ko Ikastola'rako jardun ondoren, eldu zaizkigute Agirre ta Lizaso. Aurreraxeagotik, gurekin zan Basarri. Lau bertsolariak eske Basarri'ri bertsotan ekin dakion. Eta Basarri'k altxata, kanta:

Ez zenutela nago
falta indarrikan
sarri egin dezute
orrelakorikan,
bota bear dezute
gaur ere ederrikan
zuek ez daukazute
nere bearrikan.

Orduantxe Etxeberria, Lazkano, Agirre ta Lizaso bertsotan. Zeleta dute gai. Euskeraren alde ainbeste lan egindako gizona. Ontasunez batetako jaun bat. Adiskide zintzo eta leiala. Askorentzat ixpillu dirdaitsua...

Onen ondoren Basarri berriz zutik. Itz-neurtuaz egiten du goralpen. Zeleta aipa ta aupatzen du. Goratzen ditu ere onen albotik dauden euskaltzaiñak: Lekuona, Labayen eta Jon Oñatibia batzuen lanak. Eta bertso onekin amaitzen du bere saioa:

Nik bezelaxe aitortuko du
gaur Euskalerri osoak
grazi aparta izandu dula
Juanito'ren eskuak,
laguntza geio izango zuan
gure euskera gaxoak
idazle danak izan ba'lira
ori (Zeleta) dan bezelakoak.

Zorion-emalleen idazkiak, etortzerik izan ez dutelakotz, eldu dira. Ugari, Baiñan danak ezin emen esan. Ara batzuek: Yurre tar J., Lopez Mendizabal'dar Ixaka, Irigaray, AGUR'eko Arenaza euskaltzaiñenak.

Mai inguruko txolarte atsegin arri azkena, berriro bertsolariak emango, bertso atsegiñez. Enparantzan izango dan festara otsegiñez.

Enparantzan, bein eta berriz, bertsolarien saioak. Txistuk, soiñuak, abestiak, dantzak... gaztediren poza!

Eta etxeratzeko ordua. Adiskidei agur egiteko ordua. Bizkai'tik etorri diran Muniategi'tar Sabin, Atxukarro, Jurramendi eta abarrei. Lasartear adiskide gazte trebei eta aren deia entzunik gure Gipuzkoa'tik etorri diran adiskide maite anitzei.

Eta pozik etxeratu gaituzute. Egun zoragarri bat igaro degulako. Baiñan batez ere Zeleta jauna pozez nabaitu degulako, ikusi bai-du ba-daudela oraindik gizon eskertuak, erri eskertua, bere lanaren balioa ezagutzen dutenak. Eta emen kristautasunaren oiñarri sendo bat, filosofi bikain bat: geiago balio duala, alegia, onak txarrak baiño. Eta ontasuna esker-onak erakutsiaz ordaintzen dala.

Bukatzeko, Zeleta adiskideari: ZORION!

«UXOLA»

IZASKUN, Iru begirapen

LENBIZIKO BEGIRAPENA

Euskal-Erria'ren Igaroa.

Urrunean geiegi? Leaburu'ko Eliz zorrotza... Aralar... dena deuseztua, grisa, zerbait gogoratu naiean...

BIGARREN BEGIRAPENA

Euskal-Erria'ren Oraingoa.

Ezkerrean, baserri zuriak, zelai berdeak, Otsabio gorri-beltza. Oraingo naastua...

IRUGARREN BEGIRAPENA

Euskal-Erria'ren Etorkizuna.

Txindoki illun-illuna, oso gaiñera. Piñudiak ere bai... Aitzgorri ori-xuri... Etorkizuna, bada-ezpadakoa...

* * *

Or, gure atzean. Elizatxo txurian, Ama Birjiñaren irudi polit xarmanta, mariñelak edo besteak utzia. Esker onekoak benetan eta zoriontsuak! Auxe bai dala egia!

Gaur ez ote gaude geiegi minduak... esker onekoak izateko?

Ainbeste aurrerapen, teknika ta dotriña berriekin, Jainkoa, Ama Birjiña, alde batean utzi ditugu ta ola bizi gera, umezurtz...

Jainkoak bakar-bakarrik betetzen du gizoña; Jainkoak bakar-bakarrik ematen digu egizko zoriona, eta ez mundu ontako aberastasunak! Auxe egia dala, nola ukatu?

Au dala ta bestea dala errango didate... konforme, baiñan Jainkoak bakar-bakarrik (Jainkoa esan det) asetzen duala gizonaren zorion egarria; ori iñork ez dit ukatuko. Ezta iñola ere!

* * *

Uzturre iñoiz baiño ederragoa arkitzen da, bai, Izaskun'dik Zerura!

Ekin eta jarrai! Jainkoa bat da, ta eleiz-gizonak besteak.

MATXIN

BI ERABAKI EZBERDIN

AZTERKETAN:

Dinamarkatarrei zegokien oraingoan CEE'rekiko erabakia artzea. Baietz esan dioten ezkero, laterri txiki baiña bere kondairaz aundizkien maillan lekua duen erri onek Europa'ko Ekonomi-Elkarte'an ere izango laister, ots, datorren urtearen aseran. Zazpi egun leenago noruegatarren ordua zan, eta ba-dakigu nola ezezkoa eman zuten. Izan ere, % 46 noruegatar bakarrik agertu ziran CEE'ra itsasteko prest. Gaiñerako berrogei ta amalau bestera zeuden, ordea, sarreraren aurka alegia. Eta gutxiz bederik, azken auek gaillendu ziran, nolabait biotz-beren autarkiek lagundu zielarik.

Ostera, dinamarkatar % 64 baiezkoaren alde azaldu diralarik, Europa'ganatzearen aurka zeudenak gertatu dira porrokatuak.

Auek onela, goazen leendabizi aien ezezkoaren sustraietara. CEE.ri ukoegin nai izateko noruegatar arrantzaleek eta nekazariek zituzten arrazoiak leendik ezagunak zitzaizkigun. Egia esateko, bertako ekonimi-saillik urrienetako bat nekazaritza da, ain zuzen; eta lanbide oni lotutako noruegatarrak gutxienak izanik, erriarentzat ez zen zama ikaragarria gertatuko —CEE'ean sartu ezkero— aien interesak bear bezela babesteko lain laguntza bere sakeletik ateratzea. Aldi berean, ordea, gobernuak ba-zekian arrantzaleen arazoa askoz latzagoa zela. Zergatik ote?

Begira, Noruega'ko ekonomi-sail nagusi ontan diardutenen aburuz, CEE'ean sartzetik beraiei letozkien galerak, ziur aski, irabazi ta aurrerapenak baiño aundiagoak lirake. Izan ere, laterri ura inguratzen duten urek —Mejiko'ko izpazterretatik ateratzen diren korrenta epelez eta ipar-buruko korrenta otzez osatuak izanik— adur berezia dute nonbait mota guztietako arraiak bereganatzeko. Ango arrantzaleek, beraz, kostatik urrundu bearrik gabe, eta eroso askorik, nai-aiña arrantzu egin aal izateko zorion dute. Eta dirudienez, ez dute beren uretako aberastasunak iñorekin erdibanatzeko asmorik, ez eta gutxiagorik ere!

Aatik ba, pozik eta lasaiturik gelditu dira CEE'ri utikan esan ondoren. Berek jasotako arraiak saltzearen ardura dutenentzako izango dira orain kezkak eta buruausteak okerrenean ere. CEE'az at gelditzean 250 milloi erosle ziur nolabait urruntzen zaizkiela ezin diteke aaz... Baiña ikus dezagun nortzuk izan diran norbere erria Europa'ganatzearen etsai purrukatu oen kideak: Europa batuko sendi izugarri batean norbere erri-nortasuna gal ditekeen beldur direnak; ludiko auzi ta gorabeeren aurrean norbere erriak erdiko agertuaz jarraitu aal izatea nai luketenak; CEE, kapitalismoaren dorre bezela ikus nai duten gazteak... Politikazko ikusbiderik ez dezaiegun uka, badaezpada, arrazoi oiei. Majiña batez xamurragoak billatzen ditugu izadi-maitaleen arrazoiak; atsegin-baratza deritzaien amalurra lantegigintzaren azkundeak itxuralda lezaiekeen susmoak ikaratzen dituenenak alegia. Eta zer esan siñesmenaren deiari gauza guztien gaiñetik erantzun nai izan diotenengatik?

Dinamarkatarrei buruz «burutsuek» nioenean ez nuen ain zuzen berauen abertzaletasunik eza nabarmendu edo biotz-legor agerrerazi nai, ez eta gutxiagorik ere! Erri onek erakutsi duen bere politika-eldutasun mailla aipatzea batikpat ajola zitzaidan. Dinamarka zertxobait ezagutzeko egokiera izan dudalarik, ba-nuen Europa'rako pausoa emateke geldituko ez zen itxaropena. Ala ta guztiz ere, aitor dezadan uste baiño erabakitsuago agertu direla dinamarkatarrak.

Nekazaritzan eta bere inguruan ugaldu diran lantegietan diardutenentzat Europa'ko ateak irekitzeak berebiziko garrantzia zukean. Kontu egin dezagun ekonomi-sail bi auetatik ateratzen dituzten etekiñ guztien iru/laurden atzerrira saltzen dutela: % 10 landerekiak eta % 90 aberekiak. Eta leen erosleak Inglaterra ta Alemania Federala dira, bien artean bakarrik ezportazio guztiaren 3/5 irentsitzen diotelarik. CEE osatzen duten laterri ororen erosketak bildu ezkero, berriz, ia guztiaren 4/5 artzen diotela esan bearko genduke. Auen joeraz ez zegoen, ortaz, iñolazko zalantzik. Ala ere, ori ta beste gabe dinamarkatarrak, ingles eta alemanen gosariak serbitzen jarraitu aal izatearren, batikpat, CEE'ri lotu direla baiezten duten oriek ez daude batere zuzen. Bereala ikusiko dugu zergatik.

Ekonomi-sail bi oetan diardutenak ez dira dinamarketarrik geienak, ez eta gutxiagorik ere! Aatik ba, autarkiak ematerakoan beste sail ere oso kontuan artzekoak ziran. Gertatu dena zera da, izan ere, iñork uste baiño obeto erantzun dutela alegia gaiñerako lantegimotetakoek. Langilleen elkarteek beraiek ere —burnikoek izan ezik— azkenean Europa'ren aupadari erantzuteko adorea azaldu bai dute. Eta ondo begiraturik, ba-zuten eman duten baiezkoa emateko arrazoirik. Bai bai-dakite jakientzat ezezik berauek egiten dituzten makiña edo beste lantegi-etekiñen erosle talderik nagusiena CEE barnean dagoela. 1968'gn urteko zifrak erabilliko ditugu. Kanpora saldutako landareki ta abereki guztien balioa 6.525 milloi bertako koronatara iritxi zan. Oetatik 4.500 milloi CEE'ra, Inglaterra erantsirik. Etekiñ industrialen kanporako salmentak 11.481 milloi koronaren balioa eman zutelarik, eta oetatik 1/3 CEE'ra, ortxe nonbait berdindu ziran bi sailletako ezportazioen zifrak, azoka oni zegokionez.

CEE'n urren, berriz, bere iparraldeko auzotarrekin ditu Dinamarka'k arreman eta traturik estu ta tinkoenak. Arreman auen jarraipenik ez du iñolaz ere galzorian jartzen oraingo joerarekin, ez eta gutxiagorik ere! Eskandinabiar iru laterriek ongi nabaitzen bai dute CEE'n barnean Dinamarka laguna baiño kide sendo ta leialagorik ezin lezaketela edun. CEE'ko azoketara erosoago iristeko asmoz-edo, badaezpada, Jutlandia'n —Dinamarka'ren iparraldean— zenbait lantegi eraiki nai dituzte dagoenekoz aiek.

Nerekiko bederen, ibilli-ibilli eginda, Dinamarka'k azkenaldian ez zuen mailla artuko du orain Europa'ren antolabidean. Eta ez gaitezen aaz «bederatziren» Europa, bere ekonomi-kaizuaz, Iparramerika ta URSS'en gaiñetik dagerkigula.

JOLU'K

Isaak ala Ismael

Ikusten danez, Israel eta Arabetarrek dauzkaten zaiñ-tiratu ta arazoak zuzentzeko, iñork ez du larri-aldi aundirik nabaitzen. Zuzenki, arazo ortan murgildurik aurkitzen diran laterriak, beste laterri-indartsu ta Laterri Alkartu Erakundearen ordezkari dan Gunnar Jarring, auen artu-eman guziak ikusi ondoren, estutze aundirik ez dutela, agertu dute.

Aspalditxotik alkarren guda ori, itzezkoa bakarrik izan da. Naizta patxarazko egoera ez izan; bi alderdientzat joera egokia dalarik, toki berean tenkortu dirala, ematen du.

Arabetarrak, Israel'en aberria ez dute iñolaz ere nai. Israel'en eskubidea ez dute onartzen. Baiña Israel'ek, ba-da bere muga, ta, batez ere, guda baten aurrean, ezin obeto mugatua. Auzoko arabeak, leen galdutako atzaparkada bat lur ere, ez dute eskuratu al izan, orregatik ludian zear nai dute zabaldu burruka ori, palestinar batzuk.

Arabeak, beren arrokeriari toki emanaz, galdu zituzten lurrak egun asko baiño lenago berenganatuko zituztela, maiz entzuna izan da: baiña, esandako dana, eguna zabaltzearekin batera izkutatu. Ta egunak igarotzen ari diran bezela, beren burua gero ta beerago ikusten dutelarik, arazo onek, une batetik bestera gogortzeko arrisku izugarria du. Trumoi-odeien tankera artzen ari da. Onek ez du esan nai, guztiz beroturik, azkenengo muturreraiño eramango dutenik, baiña ots mingarriak atera bai.

1967'gngo guda, aiñ parregarri galdu zutela ikusirik, noiz arte igaroko dute egoera ontan? Zenbat eta egun geiago igarotzen diran, orduan eta gaitzago zuzentzen arazo ori.

Arabetarren iritziz, Israel'en asmoak gero ta zabalera aundiagoko aberria egitea dalarik, lur berri oiek berenganatzen ba'dituzte, jaun eta jabe egitea litzake, ta bein berentzako artu ezkero, betirako izango lituzkete. Orregaitik, errialde auen pakearentzat, Israel etsai latza dala ikusten dutelarik, lur auetatik eta beren albotik uxatu artean, ez dute pakerik nai izango.

Alkarren eraman-eziña ikusi ondoren. Nola konpondu? Zer egin? 1967'gngo udaberrian galdu zituzten lurrak, guda bat bitarteko zala, eskuratu nai baldin ba'dituzte, Israel suntsiturik eta garaiturik bearko luke izan, eta ori eziñezkoa dalarik, UTOPIA da.

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

Zeintzuk arrazoi...?

Aspaldian ez det ezer idatzi gai auetzaz. Noiz beinka, ordea, alako astiñaldia eman bear zaio, ta esan dezagun zerbait, egun auetan dabillen nasteborraste, israeldarrak dirala, arabetarrak dirala ta palestinoak dirala... oien arteko burruka biziagatik.

Zeintzuk dute arrazoi? Ez da erreza asmatzea! Dakigu gertakizuna, bazter aietan gudak aurrera jarraitzen duala, beren noiz beinkako geldialdiekin. Ortan daude judioak eta arabearrak. Alkarri dioten gorroto bizia ikaragarria da. Ez nai eman besteari arrazoirik. Ez det uste nik, bide orreri jarraitzen ba'diote, ezer lortuko dutenik.

Izan zuten delako sei eguneko guda ura. Israeldarrak izan garaille. Eta guda batean garaille ateratzen dan erriak, zer egin du? Orain artean ikusi degunez, artutako lurrak beretzat gorde. Begira zer egin zuten Europa'n bertan eta beste bazter guzietan azkenengo guda nagusian. Rusoak izan ziran geien irabazi zutenak, polakoen, rumanoen, baltikokoen eta filandiakoen eta abarren lurrekin gelditurik. Besteak? Lengo lekuan gelditu ziran. Orrez gaiñera, afrikatar eta beste alderdietakoeri askatasunak eman zizkioten, ta ez da gutxi ori.

Gero, delako ONU ori sortu zuten. Nik ez dakit zertarako. Zioten: pakeak iraun dezan munduan. Baiñan ez da lortu paketik; beti daude gudan. Zertarako ONU ori? Laterri baten arrazoiak ez bai dute tutik ere balio! Itz egin pitz dariola, arrazoiak esan, eztabaidak astindu, ta geienak aintzat artu arren, gero rusoak, ingelesak, prantzesak, txiñoak edo amerikanoak, BETO eskua gora altzata, pakearen alde esandako ta egindako lan on guziak ezereztuta gelditzen dira. Bengalatarrak sartu nai dutela ONU'n? Txinoak ezetz. Israeldarreri arpegiak erakutsi bear-zaizkela? Amerikanoak ezetz... Orregaitik, zertarako dago ONU ori, ez ba'du egiak tutik ere balio?

Israeldarrak bai-dituzte beren arrazoiak. Dakigunez, Europa guzian ezin ikusiaz bizi ziran, ta alemanak orduko Hitler piztiakin milloikak eraillaz geroz, lortu zuten beren aberri zaarra. Rusoak ere baimena eman zioten orduan. Naizta gaur egunean oien aurka egon... oiek dira politika zikiñaren ordaiñak!

Ongi dakite israeldarrak indartsu egon bear dutela, bestela itxasora botako dituztela. Diotenez, ta nik, an, Ipar-ameriketan ikusi nituanez, aberatsenak dira; dirutza, orrek zaitzen dute ta laguntzaille ugari bai-dute alde guzitan. Oiek orrela dirala, oso langilleak dira gaiñera. Ez dute ortan antzik arabetarrekin. Begira zer egin duten israeldarrak lur oietan: basmortua besterik ez zan lurraldea landu, ta janariak sortu ta bizileku egin. Zer egin zuten arabeak eundaka urteetan? Eguzkia artu exerita edo lotan.

Obeki luteke arabearrak israeldarrekin konpondu. Alkartasun aundian gauza geiago lortu leikez eta ez egon dauden bezela alkar muturka. Gero, aspaldi artu zuten ONU'n erabaki ura, alegia, israeldarrak artutako lurrak berriro ematea arabearreri... Ortako daude israeldarrak! Onez naiz ez zuten konponketa, txarrez gutxiago lortuko dute.

Eta zer esango degu beste gixajo oietaz, palestinar oietaz? Auek iru, milloi dirala, ta gaur asko galduta ta sakabanatuta arkitzen dira. Obeki dute alkar ondo konpontzea, eta ez dauden bezela ezer gabe. Zer lagundu diote sirioak, ejiptoarrak, Iran, Libano ta jordandarren erregeak...? Gizajoak! Mundu ontan, gure gizaldian beintzat, gertakizun ederrik ikusi degu. Emen ez du arrazoiak xox bat balio. Indarra da nagusi, ta gaiñontzekoari errukia besterik ez diogu, urrutitik!

Palestinarrak, esturasunean zerbait egin naita, orra Munich ortan zer gertatu zan... Begira orain zer gertatzen dan delako korreos bialtzen dituzten eskutitzekin... ta, oraindik egin bear dituzten astakeriekin zer ikusteko ote gaude... Palestindarrak itota daude, ta batek, zori ortan dagonean, zerbait egin nai azkenengo arnasa eman aurretik... Zeintzuk laguntzen diote? Bateon batek bai baintzat. Laterri aundi ta arroputs oiek beren interesak zaitzearren noski. Olako laguntzak egiten dituzte errubakoak galduko direla begiratu gabe, ta orrela ez dago iñun pakerik.

Vietnam'en ezin dutela guda bukatu? Eta zer? Millakaren eriotzak ajola gutxi beren elekzioak irabazten baldin ba'dituzte! Eta... Marruekos aldeko naspilketak? Libia'ko buruzagi orren irteerak? Arabeen bata besteen ezin konponketak?

Auxe bide latza ta naskagarria!

E. OZKIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16



ERRIETAKO BARRIAK

Altzaga

Altzaga'ko berriak? Eta, Formosa'tik? Bai! Iñor ez bekit arritu! Nere aita zana Altzaga'koa. Gaur Altzaga'ko Zaindari Aundi Mikel Gongontzonaren eguna. Egun au oso gutxitan aztu izan det.

Artean ume nintzala aita zanak gaurko egunez Altzaga'ra eraman ninduan. Andoain'dik Ordizia'ra bultziz. Ondoren oiñez. Orain baiño bide estuagoak ziran, noski! Orduan, ala ere, biotza zabalago genduala ibiltzen giñan. Adiñekoek oldez aitortuko didatenez garai aietan orain baiño kezka eta buruauste gutxigoz bizi guztiak.

Altzaga'n osaba genduan: aita zanaren anai zarrena eta nere ukuzpeneko aita besoetakoa. Zertzelada auek guztiak neronentzat bakarrik zer-ikusi aundiko! Osabaren etxera eldu giñaneko begidun oillo-salda emango ziguten, noski; baiñan, nik ez det gogoan. Bazkaria oso ederra izan genduan: alako egunari zegokiona! Elizkizuna gorengo maillakoa izan zana esan bearrik bai-ote?

Egokiera izan zuanean, aita zanak osaba zanaren sagastira eraman ninduan. Biok bakarrik giñan. Izan ere gure aita zanak sagastiak bai maite! Geroago nere iaiotetxeko lurretan sagasti ederra sortu zigun! Sortu **esanez ez det uste oker ari naizenik: sagarrondo gazteak sartu eta sagastia** sortu.

Altzaga'ko sagasti ua tokitxo malkarrean-edo zan. Baita egi ospelean izatea ere ba'zitekean eta eguzkiak azpia ez legortu... Beintzat nere aita zana, irrist eginda-edo... zillipurdika beera amildu zan.

Nik zer lagundu nezaiokean? Gazteago zala berak asko maite zuan sagarrondo aren aleak bildu nai zizkidan. Ale bakar bat eman ote-zidan orain ez det gogoan...

Gero iaiotetxera itzuli giñanean iñori ez nion ezer esan. Uste dedanez lenbizikoz nere aita zanari iazorikoa oraintxe salatzen nik.

Baiñan egun artan nik bai ongi ikusi nere aita zanaren biotzondo maitatia Arek bai, aurrekoek egindako lan bikaiñak aintzakotzat zeuzkan! «Mendiko Lilia» idatzi izan ba'nuan, aita zanak erakutsi zidanak eragin ez zidala nik ezin esan!

Aurtengo 1972'garren urte ontan ere altzagatar aita gazteak gaur ere erriko Zaindariaren iaikizunetara agertu dira. Aiek beren seme-alabak aurrekoen sagastia ikustera eraman ote-dituzte?

ETXEBERRIA'TAR P. S. I.

Usansolo

IKASTARO BARRIA

Lan orretan, Irailleko azken egunetan asi giñan. Ainbat zeregin dago, baiña tamalez, eragozpen andiak be bai.

Ogeita bat ziran igaz sortutako taldekoak, baiña aldatz gora egin jakelako batzueri, beste lan batzuk be eukeezela-ta, danak bete eziñak norbaitentzat, eta nagikeria, baita bildurra be, naita zuztentzi bakoa izan geienetan, dana dala, sorta eder ortatik, sei izan ziran zintzo jokatu ebenak ikastaroa amaitu arte.

Aurten amabi gara, sei zarrak ta beste seirak barriak, ta nire ustez danak jarratzailleak, baiña (betiko itz zatar ori) zer dala-ta ez dau Usansolo'n indar andiagoa artzen gure izkuntza zarrak?

Euskaldun jaioak zareanok, ez daukazue ezetariko ikas-nairik zuon biotzetan, ala orrenbesteko jakitunak ete zaree? Ez ete dautzue, bier-etzi, zuon semeok arpegira esango, ez zareela guraso zintzoak izan, euren izaerea ta nortasuna zuen erruz galdu izango dabezelako? Talde ederra, mordo naikoa irakasle batentzat orain dagozan amabiak, baiña ez ez doguz Usansolo guztian sortuko, beste talde bat edo bi?

Bat baiño geiago daukagu lenengo maillako ikastaro bat emongo leukeenak, eta itxi egingo ete dautsagu giltza, iturburu oneri? Kili-Kili' tarrak be, aldi luzea baiño len, euren ikastaroari asierea emongo dautsee, baiña zer or zear galdu bearrean dagozan beste gazteokaz? Zenbat guraso euskaldun amaseitik ogei, ogeita bost urterarteko seme-alabakaz lozorroan? Ez da Euskal-Erria galduko, Erbestetik etorri diran anaiakatik, geure erruz baiño.

Jaungoikoaren aldetik deia izango dogu, gaur batzuk, gerotxoago beste batzuk, zer egin ete dogun Euskaldun semeak garen ezkero, berak emondako doaiakaz, gure Erri' aren aberastasunerako. Ta, zein izango da gure erantzuna? Ez gaitezala esku urtean urreratu Arengana!

Itxartu gaitezan, astia daukagun artean, ta orain arte ezer ez ba'dogu egin bere, alegindu gaitezan aurrerantzean; bere deia entzukeran, irribarrez erantzun dagigun, zerbait daroagula eskeintzeko.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Sakana

Yoan dan igandean, illabete onen 15'gnean, aita il yakon Jose Maria Satrustegi abade yaun ta euskaltzain osoari; eta atzo, astelenean, arratsaldeko bostetan egin eutsoezan illetak.

Inguruetako abadeak ta Altzatzu-komentuko kaputxinoak ta errietako siñistunak, bere, ugari izan ziran aren illetetara etorriak.

Illaren seme, Jose Maria Satrustegi abade yaunak emon eban mezea ta egin itzaldia. Erriak meza abestua, dana euskeraz kantatu eban ta oso ederto abestu gero.

Yendeen artean ba-ziran andik ta emendik etorritako euskaltzaleak ta euskal idazleak: Gipuzkoa' tik ta Iruñe'tik ta Bilbo'tik, Euskaltzaindikoak ta Iruñe'ko Prinzipe de Viana'koak, t'abar.

Illak, amar illabeteko gaxotasuna, eroapen andiz ta birtutetsuz, iñoiz be arrenkuratu barik ta itxaropen osoa Yainkoagan ipiñirik, yazan ebala, esan euskun itzaldian Satrustegi yaunak; ta ori izan dala beretzako pozik andiena.

Atsekabe darakutsogu biotz-biotzez gure adiskide Satrustegi yaunari bere aita zanaren iltean. Goian bego!

YURRE'TAR JULEN A. K.

Arrasate

UDALAITZ'EN

Igaz bezelaxe, aurten ere ospatu da, Udalaitz'zaleak eratuta mendi orretara igotzea, Urrillan 12'an. Jende ugari izan zan eta eguraldi otz samarra, naiz eta aterri egon. Jaupa, igaz bezela gure Parruku D. Jose Luis'ek emon zuan, mendian il ziran mendigoizaleen anima alde. Gazte eta «zaar» danak ordu alegintsu bat igaro zuten. «Zaar» artean eta bere 65 urtegaz gazteak bezin arin igo zuan Iñarra'tar Joseba K., gure parroko jaunak. Jarrai guztiok mendietara igotzen, ba-da bertatik Euzkadi'ko baster eder asko ikusiaz maitatu erazi egiten dausku gure lurralde eta, bide batez, an goitik Zerua urrago artzen bai-da eta beraz maiteago.

ERESI IKASKETAK

«DANOK» Alkarteak eratuta eta Udaletxea'ren laguntasunakin laister asiko dira eresi-musica ikasketak. Bertaratuko diranak izan leitekez zortzi urtetik gorakoak. Ortarako areto apaindu bat izango da. Leku au «Metalurgica Cerrajera»k emen utsik eukan gela eder baten izango da. Ondo ikusia izan da, ola ortako ugazabak emon daben laguntasunagaitik eta eskerrak damotsegu erriko eresi-zaleguztien izenean. Len ba-ziran erri ontan eresi-ikasketen lanean arduratzen ziran irakasle bi: Etxebarria'tar Begoña andereiñoa eta Bergara'tar Kazinto erriko txistularia, eta lanak oso onurakorrak izan dira.

Uste dugu irakasle on orreik jarraituko dutela akademia orretan. Danon zuzendari bezela Artzamendi'tar Jon, eresiari opatsua izango da.

ERIOTZAK

Jaunak Beraganatu, bere bizitzako 82 urtegaz Larreategi'tar Miren, Olazabal' dar Xanti'ren alarguna. Atsekabean laguntzen dautsagu bere sendi guztiai, batezere bere seme Olazabal'dar Iñaki euzkozale zintzuari.

Baita ere il da 75 urtegaz, gexo luze eta maltzur bategaz, gure lagun izan zan Kortabarria'tar Fakundo. G. B. Nere samin-agurra bere emazte Galdots'tar Miren'eri eta beste senide guztiei.

SAGARTZAZU'TAR JOSEBA

Donosti'ko izparringi baten irakurri dut euskaltzale onen il-agiria. Ezin siñistu bere eriotzaren barri au egia danik be. Ainbeste lan polit eta sakon irakurriak gara Joseba zanaren lumak idatziak «Agur» onen orrialdietan. Nik uste berak utzi duan urratsak izango dituala ondorengoak ugari eta bere lekua beteko dutela beste bi, lau edo amar euskal-idazle barriak; batez ere bere seme-alaba ugariak, aita eta amaren ondorengo jarraitzale leialak izango dirala.

Artu bezate guztiok nere saminagurrik biotzkorrena eta otoi bat irakurle guztioi Joseba zanaren gogo aldez.

EUSKERAZ IKASTEN

Emen ere zabaldu dira gau-ikastolak amar urtetik gorakoentzako eta ikasketa orreik emongo dira, San Andres, Musakola eta San Francisko'ko ikastoletan. Entzun dodanez talde politak batu dira eta asmo onez jarraitzeko gogoz gaiñera. Ori ondo dago eta ea gure erri, Arrasate au, euskaltzaletzen dugun bein da betiko, ba-dago premiña-ta. Aurrera.

UDALAITZ

Gernika

Astero bezela gaur ere, gernikar astelena da:
astelen azkatsu, astelen alai, ibilgarria
ta, aspaldiko bider ta gogoz ni ere bai, emen naiz
baserri inguruetako iendetza ta salgaiakin,
zerbaiten bearrez ta «denpora pasa» etor diranakin...
Baiña nik emen ez ba'det zer saldu, ta zer erosirik
zertako ote naiz ni ere zertako ona etorri
neure gaztaroko oroigarri zarrez beterik?
Baserritarrak, tratulariak ta abar ta abar,
bai notintza ugaria Gernika'ren biotzean!
Azoka aitzakiz
demak, pelota-iokaldiak,
ian-edan arin ta nabarmenak
albo errietatik aurkeztu diranen atsegingarri.
Gernikar dendariak, saltzalleak pozik
ta, iatetxe, ardangelak zer esanik ez!
Edanzaleak etengabeko sartu-urtenean
barrik-bar...
Akeita, txola ta txokorra;
ardoa, garagardoa, koka-kola, kas, fanta
eta, zer ez geiago? Schwppes, wissky...
barrik-bar...
Iruña, Nekazari, Bake-Eder, Arrien, Irrintzi,
Las Vegas, Los Pasos, Erreketa, zar ta gazte
barrik-bar...

Emen azaltzen dira Elkano'ren antzera
itxasoz-itxaso eta porturik-portu
munduari bira emandako itxastarrak;
emen kaletar, baserritar, amerikanoak,
munduaren berri zerbait dakitenak
barrik-bar.
O, Mister You! Euskaldun ingeleskari,
artzai menditarra. Nundik izan aiz i?
Idaho, Nevada ala Iainkoak dakin Australi'ko
mendietan?
Gernika'ko zugatz zar, zugatz bedeinkatuak
itzegiten ba'leki, egiak aitortuko lituzke
ta, zugatz berri onek ere beste ainbeste!
Gaur zugatz ori esipe gogorrean
arkitzen dalarik intziri samiñez...
atzerritarrak zure ezkur eta orriakin
dirua eskuratzen ondo ikasi dute.

Bai, beti bezela gaur ere gernikar astelena da
baiña beste astelen illun, mingarri baten
sugar ta ke beltzez ingurututako egun
ta, gau beltzago baten oroimen beltza
datorkit, baiña gaurkoz ez det geiago
mingarri dan ezertxo ere aitatu nai...

MUNIATEGI'TAR SABIN

Arratia

ZENBAT BURU AINBAT ABURU

Lau itz onein esan-naia au da: buru bakoitzak bere uste ta eretxiak dituala, ta iñoiz bere ez bardin-bardiñak. Gure irakurleen artean bere, guztirakoak doguz.

Geien batzuk, asteroko oneri buruz, ero-zoratuak, garbia, argia ta txairoa dalako; banakaren bat, ostera, epeltxuegia dala-ta, gai sakonagoen egarriz dira. Gaur egungo giroa baiña, ez uste gero sakon-sakonegietan ibiltekoa danik. Idazleak aski ta naiko egiten dau, irakurleari atea, sakonerako, idegi ta zabalduz, illuna geure kautan arakatu ta aztertuteko itziz.

Ez al dozue AGUR onetan irakurri —57'gn zenbakian, 2'gn orrialdean— Etxebarria'tar J. Anjel'en «Zereko Zera Zertzen» tximiñoaren uskia agertuz? Ez al dozue irakurri zenbaki berean, Ugarios'ko Txoria'ren txorrotxioz agertzen izan dan «Ermu'tik Petralanda'ra?

Etxebarria'ren lana argitasunik askogaz azaldua izan dan arren, tximiñoaren zerak eta zergaitiak sakontze-lana, geure bizkar artu ta geuk egin bear dogu, mamirik ba-dogu-ta. Ugarios'koak udagoieneko txorrotxioz abestu dausku. Emen be, ba, zerak eta zergaitien sakontzea geure eskuan itxi dausku, idaz-lan orretan.

Eta orain, ijijika ta ujujuka. Petralanda arakatutera: Nor dogu bera, inguru aretan ibilliz dabillen aker-sorgiña? Nik ez dakit, ziurtasunez beintzat, aker arraioa zein izan daitekenik, nire eretxi apalean baiña... «kapableen» bat izan bearko. Eta «kapablea» izatean, ez ete litzakigu obe izango, artaldea izurritu baiño len, Bargondi'ko kapatzailleari deitu, lagundu, eta igitai motzarekin «kapableak» kentzea?

Astean asteangoak gogotsu eta arretaz irakurriz, geu izan bear gara, ba, sakontzailleak.

* * *

Zeieñek, au siñistu! **Goizean bizirik eta osasunez izan ziran begi-gorri belarriaundiak, Olabarri'ko Patxiko'ren konejuak, ibilliz eta izerdiz Artaundi'k eta Ugarios'tik igaro ondoren, eguerdiko ordu biak aldera, Oba'n izan zirala, Isidra'ren matzaienpean, koipe-lurrun artean! Oba, Olabarri'tik lekutan yaukoguk, bada.**

Eskerrik asko, Patxiko, eta azi geiago be, beste baterako.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

ZIZA-LEYAKETEA

Galdakano'ko «Peña Santa Cruz» bazkunak eralduta, aspalditik iragarrita egoan eta aurreko urteetan lez ondo gertuta ta garaikur onakaz sarituta, Bizakai'ko VI Ziza-azalkuntza leyaketea, Urrillaren 3'gn igandean ospatu zan. Ostetza andirik egon ez ba'zan be aurtengo leyaketa ori ikusten, ederra izan zan; beste urteetan baiño gitxiago etorri zalakoan gagoz, bear ba'da, urreko Basauri'n eta ordu berean ospatuten ziran erri-jai politak berenganatu ebelako Galdakano'ratuko zan notintza zati bat.

Ez dago esan bearrik, asko izan ziran leyaketa orretan alde artu ebenak, eta ez gitxi be egokitu ziranak sarietarako —ogei ta amabi— naiko zeregin onein artean onenak zeintzuk ziran erabagi bear ebenentzat, apaikari edo maikoentzat. Baiña orretarako be, ziza gaya ondo ulertuten daben gizon jakitunak egozan gertuta, eta erabagi eben auzia, danentzat atsegin izango ez ba'zan, txalo otsik asko entzun zan irabazleen izenak emon ebezenean. Ona emen eurok:

Danetariko bilduketan, lenengo saria, Gazteiz'eko «Manuel Iradier» bazkunari, 1.811 ale. Bigarrena, galdakaotar Madariaga' tar Erramun eta Ibarra'tar Gotzon'i, 1.748 a. Irugarrena, baita erri onetakoa dan «Ganguren» mendizale taldeari, 1.472 a. Laugarrena, Bilbo'ko «G. Empresa Iberduero»ri, 1384 a. Bostgarrena, Bilbo'ko «Aritz-Gatza»ri, 1.265 a. eta abar amargarren sarira arte.

Bizkai'ko txapeldun, baita gure errikoa bere, Madariaga ta Ibarra jaunak; bigarren «Ganguren» taldea. Euskalerri'ko zizarik ezagunenak edo geyen jaten diranen sari bakarra, «Ganguren»i. Ziza edendu edo erailkorrak, geyen aurkeztu ebanaren saria, «Manuel Iradier»ekoei. Ikastolentzako sariak: lenengoa, Lejona'ko «San Pablo» ikastetxeak; bigarrena, Murelaga'ko Umeen ikastoleak; irugarrena, Bilbo'ko «Miren Deunaren Biotza» ikastetxeko «Boy-Scouts»ak. «Entoloma Lividum» gaizkilleraren mordorik onenantzako saria, Usurbil'go «Gardi-Alai» bazkunarentzat izan zan, eta ondo irabazia izan be. Aurkezpenik onenantzat izan zan garaikurra barriz, gure «Ganguren» mendizaleak irabazi eban; mordo ederrak eta ondo bideketuta aurkeztu ebezaneta. Azkenez, zaletasun-garaikurra —bere garrantzia dau onek be, batez bere aintzakotzat ba'daukaguz— Urrutikoetxea'tar Mikel, sei urteko mutikotxoari emon eutsen, eta bigarrena, Muñiz'dar Erroberta, amalau urteko mutikoari.

Beti jazoten dana: zizalari guztiak ez ziran atsegiñez geratuko, ba, naita sari asko izan, ez egoalako danentzako lain. Baiña, «Ganguren»eko perretxikolariak benetan aurkitzen ziran pozik, bigarrenez bakarrik aurkeztu dirala, leyaketa onetan lortu daben garaipenagaitik; eta gu be bai, garaitza ori bazkide guztion poztasuna izan dalako. Beraz, zorionak, orretarako alegindu diran guztiei eta, zelan ez!, baita «Peña Santa Cruz»ekoei be; jai orren eratzaille bazkun onek be garaipen bat geyago lortu dabelako beragaz.

BASA-JAUN

ALDAMITZ'TAR JOSEBA AITA

MIXIOLARIA

Beti izan dira Euskal Errian ospe aundiko mixiolariak. Xabier'tar Prantziskoren izakera, baita Berriotxoarena ere, ondo finkatuak daude ainbat euskal sendietan. Gure errietako zenbat seme alaba euren ardurapean mixioetako bideetan dabiltza. Arrazoiz euskal mixiolari batek Japoi'tik idazten zituan bere amatxo alargunari Iñaxio Deuna'ren itzak gogoratuaz: «Ez nuan nik iñolaere irabazi, eta ez diot iñoiz Jaunari bear bezela ordainduko, erri orretan jaiotzearekin agertu zidan ongi-naia».

Sarritan itz antzekoak entzun genizkion Bizkai'ko mixiolari bati. Bere izena: Aldamitz'tar Joseba Aita, domingotarra.

Lekeitio, itxas-ertzeko erria izan zan bere jaioterria, 1920'ean. Eta 1967'ko Abenduaren 24'an azken ilkorra euki zuan. Ben-benetako euskalduna zan jaiotzez eta izatez.

Egoaldeko Ameriketan irratiz, baita izparringietan, aurreneko orrietan, goraldu zuten bere eriotz garratza. Euskal Erriko egunerokoak ere zerbait argitaratu zuten. AGUR azterokoan idatzi nai nuke euskal mixiolari onen omenez. Bere eginkizun aurrenetakoak ezin genezake maipean ezkutatu.

Gaztetatik zuan mixiolaritzako kemena. Buru argizkoa izanik, apaiz ikaskizunetan gaillurrenetakoa zan ikasle tartean. Bidetxigor polita zabaltzen zitzaion Salamanka'ko urian irakasle jakintsua izateko, bere ikaskizunak bukatu ondoren. Esteban Deunaren lekaide etxe famatuan artu zituan Santo Domingo'ren Ordenako jantziak, Salamanka'n bertan. Ango eunurtetan izan ziran mixiolariaren ikasbideak jarraiturik etorri zan Peru'ra, Bikariato Apostóliko de Puerto Maldonado'ko mixiolari bezela, 1946'ngo urtean.

Gaztea izanik zorigarritasun bizienaz ornitua zeukan bere biotza. Beti agertu zan adizkidetsu, otoitz bideetan xintxu, eta ziñisgabekoen artean ontasunez beterik. Bere biotz sakonean oniritzi sutsuena eman zion Kristo'ren itz auei: «Izan, ba, errukitsuak, zuen Aita errukitsua dan bezelaxe». (Lk. 6, 36).

Gure Bikariato Apostoliko'ko neurriak ez dira txikiak. 150.000 kilometro kuadrado omen dauzka Lutelizti'ko liburuak adierazten diguten bezela. Nork besarkatu ain lokarri luzea? Aldamitz'tar Joseba Aitak gogarpenetan sarritan gogorazten zituan Ebanjelio santuko edestiak. (Geien bat emen idazten detana, mixio usai goxoa daukalako): «Jendetaldeak ikusi zituanean berriz, erruki artu zien: nekatuta baizeuden, eta artzai gabeko ardi nekatuak bezela. Bere ikasleei esan zien orduan: «Aundia da uzta benetan, baiña nekazariak gutxi. Egin otoitz, bai, uzta-jabeari, bere uztara nekazariak bialdu ditzan». (Mat. 9, 36-38).

Ain lurtalde zabalak urreratzeko zer egin? Ainbeste ziñisgabekoei Kristo'ren Berri-Ona eramateko nola ugaritu? Gure Gotzai Jaunari apalki, eskurakoi, adierazi zion egazki baten beartasuna. Baimena iritxi ondoren, Lima'ko urian egin zituan egazkinlaritzako ikaskizunak.

Erroman Propaganda Fideko Gotzai Nagusienak begi onakin ikusi zituan Aldamitz'tar Joseba Aitaren asmoak, eta laister eskuratu zuan egazkin berri-berria Erroma'tik bialdu zizkioten diru ugaritsuakin ordainduta.



Bots urte ondo bete zituan egakor. Egazkalari trebetsuenetako bat zan lurtalde auetako biztanle guztiak adiraziten duten bezela.

Zenbait gaxo eraman omen zituan gaxoetxeetara bere egazkintxoan, sendagilleen eskuetan berriro bizia lorturik? Zenbait meza santu esan zituan basa-mordu erdian ziñisgabekoei zeruko ikasbideak erakutsirik ondoren? Nork asmatu ditezke zenbat ibillaldi egin zituan aidez beartasunak erbestatu nairik?

Seireun ordu egin zituan, gutxi gora bera, aidez urtero. Beti beartsuak aldeztu nairik. Orrelaxe bots bat urte.

Azkeneko aidezko ibillaldia ere lau neskatx ikasle beren etxera eramateko asmoakin egin nai izan zuan.

Igo bezin laister —bots minutura— lurreratu ziran egazkiñeko eragillea bat-batean gelditu zalako. Aita Aldamitz eta bi neskatx bertan il ziran lurra ikuturik. Ez ala beste bi ikasleak. Zauriz beterik arkitu zituzten basamorduan erdi odol usturik.

Ikasbide ederra utzi dizkigu Aita Joseba'k alderdi auetako mixiolari guztioi. Berak bete ditu aintzagarri Kristo'ren itz mamitsuak: «Bizitza bere lagunengatik ematea baiño maitasun aundiagorik ez dago». (Jn. 15, 13).

Puerto Maldonado'ko erritxoan, egazkin zelai ondoan, bat-batean arkitzen da Aldamitz'tar Joseba Aitaren irudi oroigarria. Mixiolarientzat beti izan zan benetako eredu. Olaxe jarraitzen du. Eta ez urte gutxirako.

AITA DOMINGO ELORTZA
Mixiolaria

«ORIXE», BAI GIZON!

Jaungoikoa bat bakarra da, berez bera dana. Jaungoikoa zer da?: Txar guztia kendu egiozu ta baita ertz guztiak be, ta bizitza uts-utsa, egi garbi-garbia, maitasun soil-soilla, ezeren kutsu barik, argi-argi, aurkitzen dozunean, Jaungoikoa, antxe, dago; A berbera da Jaungoiko bakarra iru pertsonetan. Emengo zer guztiak, nai gauzak izan, nai lagunak izan, egi utsa ez dira, ezta maitasun soil-soilla; ertzdunak dira. Jaungoiko ez dira. Gizona euron artean Jaungoiko ez.

«Orixe» gizona zan, Jaungoiko ez; guk beraz, gizakume bezela, bakarrik, artu bear dogu. Beste eratan ezin artu giñaike. Basetxe lugiñen semea zanez, erri erritarra zala esan bear dogu. Ustela etzan, zintzoa baiño; ori dala-ta, bizitza guztian, bere basetxe sortzeari ta kristau siñismenari, lotsa barik, men zintzoa egin eutsen.

Gizon onekin egoteko erea, bein izan neban; arratsalde bat geure kontura izan gendun, il zan urte aretan bertan. Euskal idazle jakintsu a arrigarri izan jatan; uda arratsaldeko eguzkiaren irudia betirako ezarrita geratu zan nigan, euskaldun argi bat il aurrean. Ezeren etsaigorik aregan ez neban asmatu; ta gure jakintza ta izkuntza, aurrera egiten ikusteko egarri ta maitasuna bai ostera.

Erroma ta grezitarren idazle ta izkuntza goraberak, euskeraren bizia ta maiña bezela, bardin erabilkiazan. Gizon aren jakituria, izkuntza gaietan, garbi ikusi neban, ta ezin ukatu, ta arratsalde artako anai argitsuaren lekuko, egiz izan barik, ezin ixildu. Beste era batera agertzea, ondamukeria izango litzake nire aldetik, ta gizonkeri oso kaskarra. Gauzak euren tokietan jartea, guztiontzat, beti da egoki ta zuzena.

Arratsalde artan, ez-jakin baten antz-antzean, egon nintzan «Orixe»ri entzuten. Aren izkuntza ebagia, bizkorra, jakintsua izan zan. Ordu areetako jardunagaz ta ez bestegaz, gizonaren mugetatik ez dot, iñoz, atera ta gorago jasoko, baiña bai, idazle trebetasuna ta argi-bidea bere tokian jarriko. A Jaungoikoa izan zala, iñork ezin giñaike esan, baiña bere izkuntza, ondo ezagutu ta jakituriz idatzi ebala, pozik esan bear dogu.

«Orixe»k bere erria, barruz, maite eban; solo, mendi, basetxe, uri ta lantegi, Euskalerria dan bezela. Ta erri oneri bere maitasunean zituan alerik on-onenetarikoak emon eutsozan. Ala, bakoitzak ez ete dauko, bere almenen eran, norbere erria otseinduteko eskubiderik? Gizon bakoitzak ditu bere almen ta erreztasunak, ta era ortan lan dagian gizonak, bere zeregiña, zintzo egin dau.

Pertsonaren izateak alderdi bi dituan ezkero, gogoz eta soiñez oso bat egiten dau. Bion artean bat egin-arren, zati bakoitzak ditu bere bear-izanak, ardurak ta janariak. Egiz, gizonaren biziari, osoan erantzuteko, gogo ta soiñari, biei, jaten emon bear jake. Jakituria, egia, maitasuna, askatasuna ta abar izango dira gogoarentzat, ta ogia, aragia, arraiña ta abar gorputzarentzat. Ta alderdi bi onek alkartuta osotasunean, betiko bizia eskatzen dauskue. Au gizonek ezin emon. Jakitunen alegiñak gaur arte alperrikoak dira.

Gure almenak gauza batzuetarako egokiagoak dira. Ta olan, lagun bakoitzak bere almenen erara jokatzen dau giza bizitzari on egiten. «Orixe»k, izatez artu zitun almenen gisara, zintzo jokatu eban. Beti lanean, beti argi egiten. Bere aurrean erri bat eukan. Biotzez bere berea zan Euskalerria. Ta barruko zintzotasunak agintzen eutsan eran, erarik onenean, erri au otseindutea izan zan bere alegin guztia.

Bere bizitzako kurutza batzuk, agirian, dagoz. Etziran edozelako kurutzak. Ta aldi orretan, bere gizontasuna ez eban ukatu, sendotu egin zan. Beartsu jaio, beartsu bizi ta beartsu il zan. Bere erria maitatzen joan zan.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

AURKALDIAREN IKUR

Lukas deunaren Barri-On'ean berba oneik irakurtzen dira: «Jose ta, Jesus'en ama, Maria, arriturik egozan Aretzaz (Jesus'etzaz) iñoena entzunda. Simeon'ek bedeinkatu egin ebazan, eta umearen ama Maria'ri esan eutsan: Entzun, askoren ondamendirako ta askoren asasunerako da Ume au jarria Israel'en, baita ukatuko daben ezaupiderako be.» (au da, aurkaldien ikur edo ezaugarri).

Auxe jazoten da abadeen bizimoduekin. Gaur ez da, bere gizatalde, bazkun eta eginkizun bagako abaderik izan leitekenik ulertzen. Ez da, maitasun edo adizkide-lagun bako, gizon izan barik gizonen artean dan abaderik aditzen. Giza aldrearentzako izan bear dau abedeak. Baiña, gizataldean diranak ez dabe danak bardin gogokatzen. Ona emen zergaitik dan zailla abade izatea.

Aberats eta domu-ondasundunekaz ba' dabil, txiroak asarratzen dira. Aberatsak, ostera, amorratu, txiroen alde alegintzen ba'da, ta komunista izena deituten dautsoe. Lagun urkoagan bear-eskeintzeak ez ba' dautsa astirik itxiten bere otoiak egiteko, eleiz kideak bildurrez izaten dira abade gogobizikerea gitxituko yakolakoan. Siñisgabeak ikusten ba'dabe oteundegi aurrean belauniko, errukiz beteta begiratuko dautse, gixajo bat geiago ez ba'litz lez.

Bere eskonge izatean alai ta pozez agertzen ba'da, esanaz, ez dabela atsekaberik izaten ezkonduen artean, ezbaietan ipinten da bere leialtasunaren zintzoa. Oitura begirakorrez inguraturik, bakartasunean giltzapetuta gordetzen ba'da, gotzonkeriz, igeste-ebaziñoz bizi dala diñotsoe.

Txiroki jantziten ba'da, soiñeko urratu zarrez, demagogu erri-nastale da; apainkiro jai-jantziz soiñeturik, jauntxo-biziera egiten ei dau. Artzain jardueraz itzaldiak egitekoan, ez ei daki teolojiarik. Jakintza gogoetalari ba'diardu, igarle goi argi neurririk ez ei dauko.

Zoriontsu ba'da, bizitzea maitatzen ba'dau, maitasunean siñesten ba'dau; erlijio bageko «laikoa» da, ez da eleiz-gizona. Deunbide latz, neke-zale, buru-ukale bizimodua ba'daroa, antxiñeko praillea da, ez baiña XX mendeko abade beartua. Iraulpena, erreboluziñoa gaitzesten ez ba'dau, kaleak zear ba'dabil zuzenbidea eskatzen, oyuka, batzuen alde, baketsu pake zaleen bizitza arriskuan sartzen ei dau.

Bakea, indarkeriaren aurka irakastean, «gudea, ez bakea ekarten» etorri ei zan oinperatuen Kristo'ri judasena egiten ei dautso, ta txiroak eroapenean galdu daben ertsatuzapalduak izaten daben saminkeria, aserrerazi ta amorratuten ei dau.

Eleizeari, bere seme umilla dala esaten ba'dautso, irabazkor, berekoi ei dabil. Erriaren oiñaze gaitzmiñetan bide barriak zabaltzen ba'dauz, aurrerakari arriskoduna izango da.

Nori jaramon egin bearko ete dautso? Oneiri ala areiri? Jakiña, Eleizeari, onen ordezkoa da-ta. Baiña, abadea, dana dala, edozelan, Kristo lez, aurkaldien ikur izan bear, batez be gaurko egunetan.

LETONA

AGUR

III URTEA
61 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - AZILLA - 11

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

BARRIKETAN

Izen-burutzat artu dogun berba onek, lenago eukan esan-gura ederra galdu dau eta au tamala da.

«Barriketan nabil», gaur auxe esan gura dau: «zuster bako gauzak esaten nabil», edo «barritsua naz». Baiña bere esan-gura jatorra beste bat zan. «Barriketan nabil», «barriak artzen eta emoten nabil» edo «barritsua naz» «barriz baterik nago» esan gura eban. Au da, gaur, izen-buru onen bidez esan gura doguna: barriketea, barriak artzea ta emotea.

* * *

Barriketea gizonen eskubide berezi bat dogu.

Lenengo, barriak artzea. Geure inguruan eta ludian zer jazoten dan jakingurea ta jakinbearra daukaguz. Ez da beti erreza izaten. Sarritan geure inguruan jazoten diranak jakiteko iñon diran irratiak zabaldu bear izaten doguz eta urrutikuskiñak edo telebiziñoak erokeri asko esaten ditu, baiña ez jakin bearrekoak doguzan barriak.

Zenbat bider, geure izen ona zaintzeko eta geure gizarte-arazoak adierazoteko barri-bideak erabilli nai izaten doguz! Baiña ezin euretara eldu, guretzat urrin egoten dira!

* * *

Barri-bide bereziak, beste erakunde batzuk be ba dira: Izpar ingiak, egunerokoak, asterokoak, amabosterokoak, edo illerokoak; irratia gure entzumenera gau ta egun barriak dakarskuzana; urrutikuskiña (telebiziñoa), gure ikusmenera ta entzumenera barridun datorkuna; eta aldizkariak, oneik barriak baiño egokiago barrien aurrez izan bear doguzan oldozkerak dakarskuez eta gure adimenari burubide zuzenak artzeko laguntzen dautsoe.

* * *

Barriketa onetan azkatasuna bear da. Iñork ez dauko eskubiderik barri-bideak beraganduteko, ez gizon bakarrak, ezta giza-taldeak be. Barriak jakiteko eskubidea iñork ezin leikio kendu gizonari.

Baiña, ori ta guzti be, barriketa-lege bat bearrezko dala be ezin ukatu.

Lege onek, barri-zabaltzean izan daitekezan oker-bideak zuzendu bearko ditu. Esaterako iraiñak debekatu, guzurrak eragotzi, guzurrezko salakuntzak galazo, egoki ez diran eragoak ez itzi ta gaizpideak kendu.

Kaltegarriak kentzea ez litzake naikoa izango, ongarriak be indartu bearko leukez. Esaterako; egiari, bera dan lez, indarra emonazo; barri guztiak, eta ezelako alderdikeri barik, diran lez agertuazo; t. a.

* * *

Barriketan dabiltzan gizonai barrizaleak dirautsegu.


Ez da erreza barrizaleen zeregiña. Lenengo barri-billa ibilketa ugariak egin bear izaten dabez; eta billaketa goikoen eta alboetakoen eragozpenak ugari aurkitzen ditue. Batez be guda-aldietan barriketea arrisku aundiko lana izaten, benetako barriak emon gura ba'ditue beintzat.

Gero irakurleen edo entzuleen edo ikusleen aztertzea bildugarria izaten da, batez be iñoz okerkeriren bat edo guzurren bat sartzen ba'dabe. Eta beti be ezdabaidak ugari.

Baiña barrizale batek egin lagiken txarrena salduta egotea izaten da. Barriak diran lez agertu bearrean giza-talde bateri on jakozan eran agertzea da euren utsa. Eta au, batez be, erri-arazoetan eta diru edo lan-arazoetan geien jazoten da. Eta zer egin? Barrizaleak euren eginbearra zintzo beteko ba'lebe, laster euren ogibidea galduko leukee. Zenbat maltzurkeri eragiten dauskun irabazi bearrak! Baiña bakotxak bere egin-bearra bete bear dogu, nai ta ori kaltegarri izan. Ostantzean zelan gizartea zuzendu?

Sakona ta garrantzi aundikoa, benetan barrizaleen lana.

AGUR



Egi-billa, barri-billa ala gizon-billa?

ALKAR-AITU EZIÑA NONDIK?

ALKAR-AITZEKO EGIÑAK

Yaungoikoari eskerrak emon bearrean gagoz bardiñak egin ez gaitualako. Buru-auste andirik ez da bear, bardiñak ba'giña mundua zelangoa izango zan ezagututeko. Guztiok arpegikera bardiña, soin, adimen, izakera bardiñak ba'genduz, alkar ezagutu be ez giñake egingo, ta ori barik, errez aitu geinke gizarterik ezin izan leikela. Yaunak ez gaitu bardiñak egin, baiña bai alkar-aitzeko, gizartearen oiñarria ortxe dago-ta. Alan eta be, ikusten dana ikusita, alkar ez aitzeko egiñak gareala esan leike.

Alkar-aitu ezin ori nondik sortzen dan? Lengoan zerbait esan gendun, baiña gai onetzaz eten barik ekin leikio ta yarraitzea egoki dala uste dot, alkar-aitu eziñaren iturriak ugari bai ugari dira-ta. Eta orreitariko bat, bakotxaren izakerea da; eta ez txikia be. Bardiñak ez garealako, edestia zear, gizonak alkar-aitu eziñik ikusten doguz, tamalez, baiña asko oldoztu bearrik ez dago, guzurra dirudian arren, bardiñak izango ba'giña alkartu eziña bildurgarriagoa izango litzakela ulertzeko.

IRUTARIKO GIZA-TALDEAK

Bitarteko taldeak alde batera itxita, begikada baten, gizonak iru taldetan sartu geinkez: Izakeraz *baikor* diranak, au da, dana ontzat emoten dabenak; *ezkor* diranak, au da, dana txartzat emoten dabenak, eta *egikor*, au da, egizale ta egin-zale diranak. Irudi baten didez ikusi dagigun: Baikor utsak diranak, eguzki argitsua ta laiñobakoa bakarrik ikusten dabe; lurbiran gauzak ondo doaz, beraz ez da ezer egin bearrik. Ezkor utsak, dana illun ta laiño baltzez ikusten dabe ta beraz, ezer egitea alperrekoa da-ta, zetan nekatu...? Egikorrak ostera, egizale ta egin-zalea dalako, eguzki argi ta laiño bakoa ikusi arren, ba-daki laiñotu leikela, ta ori gertatu ez daiten al dan lan guztia egiten dau. Ba-daki baita ortze illun eta laiño baltzez estaldua ikusi arren, gaiñetik eguzkiak argi egiñaz, laiño baltzok urratuko dituala, ta orretarako eten barik lan egiten alegintzen da.

IRURETATIK EZIN ETE DA «ZENTZUNDUN»?

Zentzuna galdu ez daben edonork, itaun oneri auxe erantzungo leuskio: «Ezpai barik *egikor* diranak, egizale ta egin-zale diralako». Oar bat emen: Ez da naikoa egi-zalea bakarrik izatea, era batera egin-zalea izan ezik, bide erdian geldituko gintzakez-ta. Egiak eta egiteak alkartuta yoan bear dabe, dirudienez Euskeraz itz biok zuster bat daukiela esan leike-ta. Ostantzean «ezer egin barik» egizale izateak alperkeri usaiña dau ta onetan baikor-utsaren eta ezkor-utsaren antzekoa izango litzake.

Baiña yazo leiteke ta sarritan yazoten da, egin-zale izatea egizale izan barik. Eta yakiña, orren ondorena indarrak eta astia galdu ta dana ondatzea izaten da, egunero ikusten dogunez.

BAIKORRA ZARA?

Baikor izatea, berenez ez da gauza txarra. Ori bakarrik ez, baikortasuna bizitza onetan, neurri baten, bearrekoa da, XI Pio'k esaten ebanez. Txarra dana baikor-utsa izatea da, asmolari ta ameslari ezer egin barik bizitza guztian izatea. Bizitza guztia «zirisuzkoa»na egiten igaro, ta onen ondorena guztiok dakigu zein dan: Gabean zarata, su, argitasun eta istillu aundia, ta urrengo goizean keez eta kedarrez estaldutako txirrinka batzuk. Gauzak ondo doazala ta ezer egin bearrik ez dala diñozu? Egizu al dozuna ta gauzak obeto yoango dira. Ondo dagona obetuten alegindu zaite, ta zure alegiñak ez dira alperrokoak izango; pisika yakitunak esaten daben lez: «munduan ezer be ez da galtzen, aldatu baiño».

EZKORRA ZARA?

Ekiyozu lanari, zuk ezagutzen ez dozuzan bide asko dagoz, txarto dagoana onduteko-ta. Besoak idunduta ez txarrari begira negarrez astirik galdu. Egiten danak, onerako naiz txarrerako, beti dau bere eragipena. Lan gogoz eta eten barik, txarto dagona zuzentzeko ori da bide zuzena-ta. Ostantzean aizeak orbelen antzera aurrean eroango zaitu... ezer egin barik!

EGIKORRA ZARA?

Egin-zale ta egi-zale danari ez dago ezer esan bearrik, Aurrera!, baiño. Egia buruan, kemena, biotzean ta iraunpena lanean, AGUR-zale guztiok Euskerearen alde EKIN eta YARRAI!

GAMA

BEIN TA BETIKO

Ba-dakit nire idaz-lanok ez dirala guztientzat atsegin izaten. Gaurko giro garratzak, satorkeriak eta arpegi-bikoen joko zikiñak ikusteak, ez nau olerkigintzara bultzatzen, naizta «poeta» batzuentzat, sats-artean garagarraka ibiltea, olerki girorik egokiena izan. Orregaitik, or eta emen entzuten diran erosta ta ikusten diran buru-zuriketeri jaramonik egin barik, al dodan neurrian beintzat, aurrera jotea erabaki dot.

Lengo baten, egun mingarria izan ba'zan be, barre egin bear izan neban. Esan eustenez, asarre ta minduta ei dago Mitxelena jauna nire lanak dirala ta ez dirala. Bere aurka mingor agertzen ei naz beti. Erakunde baten izenean idazten ei dot, baiña, berak, orretarako eskubide obeak ei ditu, guda egin ei eban ba, erakunde orren menpean... ta nik ez.

Aoz-ao dabillen zurrumurru orri arpegi emonaz, bein eta betiko, al dodanik laburren eta zintzoen erantzungo dautsot:

a) *Nik ez daukat, ezta iñoiz izan ere, ez len ez orain, Mitxelena'renganako gorrotorik, ez asmo txar berezirik. Geiago esango neuke, izkuntzalari ta errikide bezela aintzakotzat izan dot beti.*

g) *Gaur bere, jakintza aldetik, izkuntzen jakintza aldetik ain zuzen be, beste euskaldun agurgarri batzuekin goi-maillan dagoan gizonagaz konparatzeko ni ez naiz iñor... Baiña, zoritxarreko «euskera batu»ak dirala ta ez dirala, sortu diran burruka, eztabaida, gorroto, zapalketa, giza-legerik ezak eta abar, bere jokabideagaz bat ez izateko, bai.*

k) *Mingor azaltzen naizela? Ta, bera? Ba ete du bere idazkerak ezertariko gozotasunik? Zer esan ete neike orretzaz? Edo ta beste askok, Mokoroa Aita batek, bat aipatzearren? Asko jakin izan arren, ez doguz beti norberaren utsak ikusi al izaten, edo ez doguz ikusi nai izaten.*

y) *Erakunde baten menpean gudan ibillia da, danak dakiten bezela, Mitxelena jauna... ta ni ez! Baiña zelan arrayo ibilliko nintzan sei urteko umemokoa nintzalarik? «Txupetea» izkillutzat artuta joango ez ba'nintzan beintzat!*

Eskubide orri buruz, ez gara norgeiakoan asiko. Arrezkeroko bizitzak be aztertu bearko litzakez-eta, ta ez da erreza. Baiña ba-ditu, edo izango ditu nunbait, bere lengo lagunak, beragaz an izandakoak, bion ezagunak, eta argi-emoilletzaz artu legikez. Alde ortatik, bear ba'da, lur labanean sartu leiteke, ta ez dot olakorik nai.

Zergaitik? Ez dodalako iñoiz, AGUR'en beintzat, ezertariko erakunde edo talderen izenean naiz menpean ezer idatzi; nere buruz eta aburuz baiño. Ez dagiguzan ba, gauzak nastatu! Dana dala, aipatutako erakunde orretan, askatsunean aukeratutakoak izan ziran buruen artekoak ezagutu zituan, noski, gaur beste munduan dagozan asko ta asko. Aren iritziak, erri-maitasuna ta demokrata jokerea onartuko zituan, bai ziur...

Ba, aspaldi onetan, makiña bat irain, guzur, maltzurkeri ta zikinkeri zabaldu da gizon arein oroimena loitu naian, lenago beste batzuk (?) egiten eben bidetik. Azken egun oneitan «zakilero» bere deitu dautse «albokorik» ez daukan «idazkero» edo erdi oillanda batek... eta emen dago untzea! Emen neretzat asarregarriena! Mitxelena, bere lengo lagun zintzoegaitik olakoak esaten dituenekin bat eginda ikustea, ala, ez ete da ori egi-egia? Ez ete ziran «olakoak» Bayona'ko batzarraren sortzaille ta buru? Ta gaur be, lan apurtzaille ori obeto egiteko bananduta bezela agertzen diranak? Ez ziran orreitxek bakarrik arrazoi biolojikudun bakarrak?

Ta ain sakon eta ederto sartu ba'eutsoezan demokratzizko iritziak erakunde aretan izan zanean... zelan onartzen ditu sator-jokoan a eten-naian dabiltzanen gogorkeriak? Zelan lagundu, onartu ta aurrera eraman On Manuel Lekuona'ri emon eutsen arrikadea?...

Ez da, ez, aski; ez da naikoa, noizik bein, asarre antzeko alditxo bat agertzea. Iritzien eta ekintzen artean ez dago azalkeririk, eta utsik egin ez dagigun, «orretariko» batek, oraintsu, argi erakutsi du bere belarria, argi bere errizalatasun-eza... bere, ta beralakoen barruko «arra».

Buru zuritzailleen artean, «zakilean» izandako bat baiño geiago ikusten doguz; bear ba'da, konplejuren batek eraginda; bildur konplejuak-edo. Arritzekoak dira olako gauzak, baiña gaur ezin geinkez ezergaitik arritu, ta intzentzu-emoille orrein jokabideekin gitxiago. Ezagutuko ez ba'gendukez...!

Ez Mitxelena jauna, ez dautsut eskubiderik ukatuko, ta geiago esango neuskizu: gizon eta lagun on arein oroimena gordetzea ta zaintzea, guztion egin-bearra litzakela, biolojizko konpleju paltsu barik, aurrez-aurre, gorgorkeriari gogor agertuz eta ekiñaz.

Eta esaera zarrak diñoan bezela: «Ondo esanak onartu ta gaizki esanak parkatu».

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

ATE JOKA AMA

—Arratsaldeon etxekoandre —agurtu zuan atean aurkitu zun zarrak— ikustaldi bat egitera natorkizu.

—Ongi da; ez ezaguna zaitut, nor zaitut?

—Zure etxean sartzen utziko al nauzu? Patxaran jazarrita, mintzatuko giñake...

—Sartu bai gurera, amona, ta jazarri ementxe.

—Ikusten zaitut, nor naizen jakiteko kezkatsu; ara ba: Ama Euskera nauzu.

—Ene bada! Ama Euskera? Nundik nora zabiltz Ama Euskera?

—Ementxe nabilkizu Euskalerri'ko etxeak ikusten ta gaur zurean sartu-atera bat egitera etorria nazu.

—Zer ikusi nai zenduke? Poz pozik erakutsiko dizut etxe osoa, Ama Euskera baiñan bildur naiz ez zaizula lengo euskal etxeak bezin atsegin izango.

—Ni ez nabil, alaba, etxebizitzako tresnak miatzen; ni beste zeozerren billa nabil...

—Zeiñen billa zabiltz ba, euskal etxetan?

—Ara ba, alaba. Euskal Usayaren billa nabil.

—Etxe guzitan, noski, arkituko zenun, Ama Euskera, usai ori...

—Ez ba enetxoa, ez; ikusi ditut bai etxe sarreran zein baiño zein kutxa ederragoaz ornituak; baita antziñako lurreko suak, eureen su burni ta gaiñetiko tresnaz osatuak, danak txukun ta zoragarri... baiñan euskal usairik ez... erderaren usaia, bai gurasoetan ta bai ikastoletatik datozten aurretan.

* * *

—Arratsaldeon ama ta baita zuri ere amona.

—Baita zuei ere aurtxo maiteok. Zuek indarberritzen duzute nere biotza, euskeraz mintzatuz.

—Zein zera, amona? Gaur ikusten bazaitugu aurreneko aldiz —galdetu zion Malen'ek aurtxoetan zarrenak.

—Gaur gurean ikusten dezuten amon au, Malen, Ama Euskera duzute, gaur gurera ikustaldi bat egitera etorria. Mintzatu beti euskeraz ta orrela indarberrituko duzute bere biotza.

—Zergatik ez digute ba maistrak euskeraz jarduten uzten?

—Ez dutelako maistra oyek Euskera maite ta onen lekuan erdera zabalduta ikusi nai dutelako. Baiñan ori iritxiko ba'luteke, orduntxe ilko litzaiguke Ama Euskera.

—Egia al da Ama Euskera gure amak diona? Ilko al ziñake, jotakea aür guziak asiko ba'giñake erderaz?

—Bai enetxoak, bai, orduntxe aituko lirake nere indarrak ta Euskalerri'tik izkutatuko nintzake betiko.

—Noiztik bizi zera gure artean, Euskalerria'n? —galdetu zion Kepa'k.

—Millaka urteak damazkit ementxe, lurralde onetan ta aurrera pozik jarraituko dut emen zuek laguntzen ba'didazute.

—Ze egin bear dugu orretako Ama Euskera? —Malen'ek.

—Auxe egin bear duzute, gazteok, ni beti lirain ta gazte ikusteko, naiz millaka urteak izan: Euskeraz jardun alkarrekin ta lagun guziai euskeraz mintzatu azi. Ez lotsatu iñun eta iñoren aurrean; entzun azi danai euskera ederra ta ori egiten ba'duzute, Euskalerri'ko aur ta gazte guziak, ordun erabat indarberritu aziko nazute.

—Egingo dugu ba ori Ama Euskera, ta gaur bertatik nere lagun guziai euskeraz itzegin aziko diet.

—Entzun duzu Ama Euskera, gure Malen maite onen asmo ederra?

—Azi ederra erein duzu zure aurtxoen biotzetan ta oparo erantzuten dute oyek. Ai ene euskal ama guziak zure antzera jokatuko ba'lirake! ordun bai etxe ta kale guzietan beste euskal giro bat nabaituko nuke.

—Bai arrazoi duzu Ama Euskera, gure eskutan dago euskal azia ereitea gure aurren biotzetan ta zu indartu ta gazte gordetzea.

—Bai, zoritxarrez euskal guraso askoen ajolagabekeriaz, aspildidanik indarrak kentzen dijoazkit ta orrela nabil gero ta makalago.

—Ezin al dezakegu ezer egin zu bizkortu ta indartzeko, Ama Euskera?

—Zuen eskutan dago ba, nere bizia ta benetan maitatuko ba'niñuzuteke, ordun sayatuko ziñateke, guraso danak, arretaz, zuen seme-alaberi euskeraz jardun azten.

—Gu sayatu izan gera orain arte ikusi duzun bezela, gure aurrai euskeraz mintzatu azten, baita gure lagun artean zabaltzen arreta au euskeraren alde, ta emendik aurrera gero ta adore aundiagoakin sayatuko naiz ta sayatu aziko diet nere lagun guztiai.

RAMON MURUA

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

DONOSTI'KO LIZEO BERRIAN

Urrilla'k 22. Donostia'k euskal lizeo berria inauguratu du. Jai ederra: erri-meza, dantzariak, bertsolariak, abeslariak eta jendetza. Eta pozik gera, oso pozik, bertako euskal giroan aziko baitira gure seme-alabak.

Bañan... (beti ba'da tartean zoritxarrezko «bañaren» bat gauzen gardentasuna lausotzen diguna) klase-barruko euskal arazoa ez dabil askatasun-bide gizatsu ta onetik.

Euskeraren arazo korapiltsu ta zunburruntsua etxe-barrurako beintzat konpontzeko asmoz, lizeoak batzorde bat eratu zun igaz, irakasle ta guraso batzuen billera alegia. Bañan batzordeak ez du ezer konpondu. Agirian zegon, batzordekorik iñork etzula bere iritzietan atzera egingo. Nolanai ere batzordeko atxe-zaleak guzia irabazia zeukatela uste izan dute. Batzordeko jakintsuenaren arrazoi mardulak ez dute atxezale setatien arpegi gogorra goxatzeko indarrik izan. Eta bitartean, lizeoko zenbait klasetan lotsagarrizko koakzioz eta zigorrak aginduaz, euskeranto amorragarriaren idazkera onartzera beartuak daude aurrak: «oilo, bainan, zen, hura, xori... eta tankerako bitxikeriak». Aurren naspilla! Ezer ulertzen etzutela esanaz etorri zaizkigu zenbait ume.

Eta nun izaten da lizeoko Zuzendaria alako gogorkeriak ametitzeko? Ez-ikusi edo ez-entzun egiten ote-du?

Zuzendaria ere ustezko irabazleen alde omen dago. Zuzendari bezela, euskeraren arazo naspiltsua konponbidean dagola jakiñik, berari dagokio iñori ez bezela erdi-bidetik ibiltzea, iñungo taldetara geiegi makurtu gabe. Bañan lizeoaren izenean firmatzen dizkigun paperak atxe-zaleen idazkeran bakarrik azaltzen dira. Eta inaugurazio egunean iru gizon fundatzaleen omenez paretan ezarritako arria ere atxez idatzita agertzen da.

Zuzendariak esana: «grafia-erabakiak pedagogiaren alde eta lizeoko batasunaren alde artu bearrekoak dira; eta batzordearen laguntzaz edo-ta bakarrik artuko ditut». Auxe Zuzendari liberala! Gaxoak ez jakin nunbait euskeraren arazoa ez dala pedagogi-arazoa, gañez egiten dion arazo errikoi aundi bat baizik.

Ta gauzak orrela, orra nun lertzen dan ixtillua! Lizeo'ko irakasle batek Zuzendariari arpegi eman dio (beste zenbait irakasle aurrean) batzordearen bitartez ezin ditekela ezer konpondu; eta zenbait klasetan ez dala bear bezelako askatasunik nai dan bezela idazteko. Lotsagabeko apaiz bat tartetu da eta, besteak baño geiago dalakoan, itz exkaxak esaten ditu. Nabarmenki sortutako zarata au bereala zabaltzen da Donostia'n.

Ondoren guraso-batzar bat. Zuzendaria asarre dabil batzarrean. Ez dijoakio gauza nai bezela, konplikatzen ari zaio dana. Euskeraren arazoak, gurasoen artean enkuesta bat merezi dula esaten diote, atxe-zaleen kontrakoak baitira geienak.

Eta orra gaurko itxoinaldia. Gurasoak ez al gera ezer? Diktaduraz egin bear ote da dana? Zuzenduko ote da dana? Auxe da gure nai bizia lizeoaren alde gabiltzanontzat. Penagarriena auxe zaigu: alkartasun-girotik eza euskaltzale artean eta lizeoan.

On guzia opa diogu lizeoari. Bañan dana askatasun-giroan ikusia. Ez degu nai diktadorerik.

Euskaldunok beti praktikoak izan gera; eta gure aurrentzat *errextasuna* eskatzen degu. Idatzi dezatela ulertuaz, trabarik gabe, itz ezagunenak biurtu ta aldatu gabe, buruasterik gutxienarekin. Auxe da pedagogia. Auxe da falta deguna: zentzua, edo-ta argiago esana «sentido común», eta gañera abertzaletasuna.

BI GURASO

POZAK ETA KEZKAK

ALFAERDERATZE KANPAINAK

Z-A'ko 503'gn zenbakian diñoenez, Euskaltzaindi'ko batzuen alfabetatze kanpainako batzordeak, bere arauen eta textoen zerrendea emon dau. Onela diño bigarren puntuan:

«Horrekin batean, euskeraren inguruko gaiak sar daitezke: euskal literatura, euskeraren batasuna, euskeraren geografia eta dialektologia eta «ABAR». Alfabetatze literarioa, beraz. Bestelako gaiak ez dira Euskaltzaindiko Alfabetatze Batzordearenak. Zenbaitek beste gairik erabilli nahi baldin badu, ezingo du Euskaltzaindiaren ez eta Alfabetatzearen izenik hartu»... Bapo! Eta dirurik?

Ikusten danez, gure salakuntzatxoak zeozer lortu dabe. Baiña, nork ixildu or zear «karnetakin» dabiltzan hache-beroak? Zer egingo ote du Irigarai jaunak, nun, noiz eta zer «esan dan» argitaratzen ba'dogu? Ez da epe luzeegirik bearko!

* * *

BILBO'KO KALE-ORMETAN

Alfabetatzea aipatu dogun ezkero, arrituta gagozala esan bear. Unibersidadean egingo dan alfaerderatzearen aldeko zabaldukea lakorik ez dogu iñoiz ikusi. Noiz orrenbeste orri kale-nagusietako ormetan? Noiz orrenbesteko erreztasunik? Noiz orrenbeste oar eta agiri eguneroko ta irratietan? Edo jesuitak indar aundia daukee, edo «Behin batean»go ipuiñari... sari berezia!

* * *

Andereiño bat etxerik-etxe; editorial bateri zabalkundea ta arpide barri lortzeak egiten. H'rik ez ebala ikusi nai be, etxeko-andra batek... —«Ba ikusi bearko dozuz nai ta nai ez!» besteak. Gerotxoago, «arpidedun geiago lortzen ez ba'dogu, ezingo dogu aurrera jarraitu, porrot egitera goaz». Lenengo, h'ak indarrez sartu guran, gero biotza bigundo naian. Baiña, azkenean be, ezetz biribilla! —Kendu acheak eta danok arpidetuko gara...

* * *

EZ IGARRI BARIK

Ikastola batzuetan euskerantoa irakasten da. Arduradunak diñoenez, gurasoen baimenakin. Baiña, or eta emen aztertu ondoren, ainbat gurasok ez daki ezertxo ere... ta ez dira guraso alperrak. Batek esan dauskunez, ez ei dago bere ikastolan iritxirik emoterik. Guk, «nola izendatu dozuez ba, batzordekoak?» Berak, «guk ez doguz izendatu; oraintzu, batek (izen abizenak emen), idazkaritzan sartu zala, bere naia edo atzetiko agindukoak egiten dauz. Ta, ezarri daben batu ori iruntzi eziñik, andereiño bik alde egin dabe... ta ba-dakizu zer esan daben orrek gurasoak lasaitzeko? Makalik ebillazala... Baiña beste ikastola baten lanean diardue. Bai, gogaituta alde egin dabe. Baiña erria esnatuko da ta orduan...!»

Antza, lengo baten, gure idazle bateri arduradun batek emon eutsan «inpormazioa» ez zan zuzena izan...

PIPER-ZIRI

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

GAZTE EUSKERAZ

Nork ez du ikasi gaur, naizta Euskalerria'n bizi izan, bertan, euskeraz mintzatzeak arritu egiten gaitula.

Gertaera tamalgarri onetan, oiturik gaude. Eguneroko gure artuemanetan bereziki erabilli bear genduken izkuntza, edonor, edozein lekutan mintzatzeak, arritu edo ta poztu egiten gaitu.

Izan ere, erderazko giroan denbora luzean bizi geralako, arrigarria dirudi, euskeraz mintzatzea ere. Baiñan, giro orren barruan, oraindik euskaldunak ba direla ikustea, pozgarria dela aitortu bear benetan.

Ze jokabideri eldu bear diogu beraz, euskal nortasun berezia lortzeko? Ene ustez, gizon bakoitzak elegiñ guztiak egin bear ditu euskeraz mintzatzeko. Ez ditzagun metodo eta batasun xelebreak sortu. Bakoitzak bere barruko griñak eskatzen dion aukeran alegin bear du.

Ez dezaiogun iñori bizkar gaiñera kulparik ixuri, danak degu noski-ta erru pitin bat. Egi borobilla da, orain arte Euskalerria'n egin dan geiena, dana ez esateagaitik, euskaldunak egiña izan dela. Ikus bestela, ikastolak edo alkarteak nork sortu ditun. Aurrerantzean ere, guk ez ba'degu lanik egiten, ez zaizkigu atzerritik etorriko laguntza eskeintzera, nik beiñepin ez det orrelako itxaropenik.

Ikastolak, aipatu ditutanez, bide egoki eta zuzenak dire bai euskeraz eta euskal nortasunaz ezitzeko. Ez gaitezen ordea engaiñatu alkar, sei edo zortzi ordu igarotako ikasketan mintzatzen direla, eta gero erderaz egun guztian, ez da aurrerapen aundirik egin.

Lantokietan, artuemanetan, kirol edo jolasketan, saia gaitezen, gure erriko izkuntzan.

Ba-dakit gai au, asko ikutua dagoela, ez da gai berria; ba-dakit, euskera bakarrik ez dela euskal nortasun bat lortzeko aski; ba-dakit, len itz egin zutenak, nik baiñon obekio itz egin zutela; eta ala ere ausartu naiz lerro abek betetzera. Batez ere, atzo, neure erriari bira bat eman eta ikusirik jendea naiz kale edo ostatuetan erderaz geien mintzatzen zela, orregaitik idatzi bearra sentitu det. Alare, ez nuen dana illun ikusi, ez. Neska bi, petril baten gaiñean exerita eta ikastolako liburu batzuk eskuan zituztelarik, beren sei edo zazpi urtekin, jator euskeraz mintzatzen entzun nitun. Poztu egin nindun gertaera orrek. Argi bat nabaritu nun illuntasunean.

Itxaropena eduki bear degu. Euskalerri'ko nortasunari buruz. Itxaropena, baiñan gu alengintzen gerala. Argi dagoela uste det.

RAMON ZAPIRAIN

Boutique

Cerra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

SAGARZAZU'TAR JOSEBA'RI

Joseba pizkor joan zaigu. Joan zaigu, bai, ezezagun degun bizikera berrira. Ez da il, ez, piztu egin zaigu.

Mundu onetan, amaiera izango degu, bai, baiñan, ara or nun bestean asiera ematen digoun. Eta, bat, mundu berri ortara piztutzen danean, «GIZONA» epaitzen degu. Gure artetik iges egin digunaren gizatasuna, burrukan bizi izan dan bitartean aitortu nai izan ez diogun gizatasuna, gauza berri baliotsua arkitzen danean bezelatsu, joanda gero agertzen, zabaltzen, aitortzen degu. Joanda gero!

Gizona! Gizatasuna! Bat baldin ba'zan, au Sagarzazu'tar Joseba gendun.

Aurtxo zalarik, guda garaiko ez-bearrak zirala-ta, bere sendiarekin, erritik urrun joan bear izan zuan. Bilbo, Santander, emendik Frantzi'runtz... Eta guda ondoren, egun triste, penagarri pranko igaro ondoren, berriro bere txokora.

Amabi urte arte, erriko ikastetxean, eta, gurasoeri laguntzearrean, emendik lanera.

Gazte-gaztetatik, irizpide jator baten elburua arkitu nairik, burrukan. Eta, azken zortzi urte auetan, zer esanik ez.

Zenbat atsekabe, zaplateko artua izan ote da; eta, guztia, erri-maitalea izanik, bere arnas guzia, bere izatea erriaren alde eman nairik jokatu izan zualako. Gure ama, euskaldunen ama, gure oiñakin zapaltzen degun lur bedeinkatu au biotzez maite zualako; bere aultasunarrean, osagarriak emanik, pixkortzen, bizia ematen saiatzen zalako.

Gure artean bizi izan degun bitartean ez degu ezagutu nai izan; bear bada, bere gizatasunaren jabe izan ez geralako; berak, bere biotz-muiñetan nabaitzen zuan erri-berotasun-maillara agertzen ez giñalako, edo, ariñak izanik, beste interes edo irri batzueri eltzen genielako.

* * *

Eguerdian, gure arbaso zaarren errian; Aizarna'n, alkarrekin egondu giñan. Santa Engrazi'tik etxeruntz getozela, alkar ikusi, ta mintzatu giñan. Onela zion:

—Aspaldidanik kaxuelitarik etzuagu egin, eta datorren larunbaterako bakallaua tomatiarekin zuzendu ezak, eta, patxaran, alkarrekin itzegin bear zuagu. Imanol'eri ere deituko zioguk, eta emengo Ikastolaren egoerari buruz baitipait itzegin bear zuagu. Gurasoekin billerarik egin ez dala ere denboralia dek, eta gu ere zerbait ba-gerala esango nikek. Gu gaituk Ikastolako aurren gurasoak...

—Bai, motell, bai. Ez adi kezkatu. Larunbaterako zerbait antolatuko zuat, eta goazen, orain, barrura...

Eta, Aizarna'ko Soziedade edo Alkartera sartu giñan. Emen baxo-erdi bat artuaz, antzerkiari buruz, jardun-aldi bat euki gendun.

Emendik etxera, ta, berak, amarengana joan bear zuala. Larunbata arte esanaz agurtu giñan.

Ikastolaren sortzaillea gendun. Naizta, azken bi urte auetan batzordetik kanpora egon, ikastolaren gaiñean beti egon izan oi zan. Beti tinko, kezkati, Ikastolak gurasoen eskuetan jarraitzearren. Aurren eziketa-motan, gurasoak zer-ikusia, kezkatu bearra daukatela bai-zion.

Ikastola ain maitea ba'zuan ere, emendik kanpora, ainbat egintzetan, antolaketan sarturik, zuzendu oi zituan. Ain zuzen, aurreko igandean, Eleiz-konponketako zorrak zerbait arindu bear zirala-ta, Bilbo'ko «SAN ANTON» abes-batza, erestaldi jator bat eskeintzera, utsaren truke, Zestu'ra ekarri zigun.

Ori bai. Erriari zion maitasun sutsuarekin minberaturik zeukan biotz ura, Erria aitzakitzat arturik, naasketak sortzen ari ziranak, naigabetzen zuten. «H» ikurrintzat arturik, mordollokerian dabiltzanak; Aurrak erriarenak dirala-ta, Kristau-ezikera Ikastolatik urrundu nai dutenak; Abereen pare izan nai duten gazteen askatasun-eskeak; Apaizak aitzakitzat artuta, eleizatik urrutiratutakoak; Aberzaletasuna ezpaiñetan, eta erbeste-zale erraietan diranak, t. a., min ematen zioten.

Zuzen etzegon guziakin minberatzen bai zan gure Joxe, baiñan, bere biotzak gorrotorik etzuan ezagutu, ez bai-zegon tokirik; eta edonori bere laguntza eskeintzerakoan, margorik ere ez.

Ta ara, sasoirik onenean, gure Jainkoak eraman digu. Ordea, Joxe eredutzat arturik, bere naiak geureganaturik, berak marratu digun bideari jarraitzen, erriaren elburua lortzen aleginduko gerala ziur nago. Maitasuna, gizatasuna ikurrintzat arturik, berak artu izan zuan bezelatsu.

Bai, Joxe: Ik urratu dizkigukan bideak alik eta zintzoen jarraitzen aleginduko gaituk. Eta ik, alkar ikusiko ez geran ontan, kemenak galtzen ikusten ba'gaituk, or goitik, indarberritu gaitzak.

Agur, Joxe, Jainkoak nai duan arte.

EUSKO

GIZON ONA

Gauza asko egiten dira lurrean gizonen artean: ikastaroak, agurtuerak, gasbariak, batzarrak, omenak... Onein artean bat aukeratu bear dot Sagartzatzu'ren alde bere azkenengo eguna lurraren gaiñean agertzeko. Ta omena deritxot onena. Il ondorengo egunean, Zestua'n goratzarrea egin jakon gizon oneri.

Batzuetan, gizartean, batzarraldi batera joateko, dirua emon eta bidekoa be ordaintzen dabe, ta alan eta guzti be, nai litzaken jenderik ez da batzen. Zestua'n Sagartzatzu'ren agurtuera egunean, beste era batera izan zan. Aren il-barria, arin zabaldu zan, eta sendimendu aundiak mindu zituan lagun askoren barruak. Gizon-gizon bat aldendu zan Euskalerri'tik.

Arratsaldeko sei ta erdietan Eleiz barrua ta landa jendez egozan. Baiña zer da begiak ikusten dabena? Zerk batu leike ainbesteko jendetza gorpu il-otzaren inguruan? Bai, Joseba il da, ta Joseba'ren bidea garbi ta aratz egoan askoren begien aurrean. Zuzentasunez egiñiko bidea izan eta indar aundia eukan bere ondoren itzi eban argiak.

Egi billa doa gizonaren burua, orretarako sorturikoa da-ta. Kristo'k esan eban «Egiak askatuko zaitue». Egia da, gauzak eta jazoerak zer zelan diran, agertu bear dauzkuzana. Buruko argiak ikusi ta aztertu bear ditu, ta orduan, egia agertzen da gizartearen aurrean.

Baiña, ni ez naz argia berbera, ta gauza guztiak ikustea, eziña jat. Beraz egi asko ezin ditut ezagutu. Ona emen, egia ezagutzeko bideak ebagita geratzen jataz. Ez da au baiña bakarrik guri egi bidea kentzen dauskuna. Beste okerkeri bat be ba-da, min eta kaltegarriago dana. Norberekeriaren gaiztakeria; bear ba'da arrokeriz inguratuta ez dautso buruari bear dabena ikusten izten. Jokabide onek ondoren miñak ditu ta izadia itxusituta geratzen da, ta gizadia odoletan. Gizona, egirik gabe ta egia zapalduta, pizti baliza da, ta gau illuna.

Beste ondasun bat eskaizen dau gure izateak: zuzentza ederra. Au norbere erraietan daroagu. Ume txikiak be zuzentza nai dau, ta guri, nagusioi zuzentasuna eskatzen dausku beragazko artu-emonetan. Oso sentikorra da gizonaren zuzentza egarria. Ta ostera, gizartean, sarri oinpean be oinperatuta erabilten da. Ortik bizi-eziñak, negarrak, bizi-modu urratu ta ondatuak.

Berezko dan beste egarri bat, maitasuna da. Au dogu egi ta zuzentasunaren ondorengo lorea. Lora ederra. Beti paparrean eta egiteetan eroan bear litzakena. Baiña egia, zuzentza ta maitasuna, noizbeinka ta geiagotan, gizadian nabaitu arren, sarriago, izan bear leukeen tokietan, urriak izaten dira.

Gure adiskide min Sagartzatzu'k egiz, zuzentasunez eta maitasunez jokatu eban. Bere inguruko gizartearentzat onena zer zan, argi ikusten alegindu zan. Ondo ikusiriko egia maite izan eban, ta maitasun orrek bere gizartea maitatzera lagundu eutson. Sagartzatzu'k egiñiko idazkaietan egia, naia ta zuzentasun egarria agiri dira. Orretarako egiña izanik, gizona zanez, bera be ondo konturatu zan aldean eroan erantzunpenagaz. Ta egi ta zuzentasun billa ebillan, berak egiz maite eban erriarentzat.

Maitasun ori erri ta bere arteko ongi-naia zan. Ona nai eban. Egi ta zuzentasunetik datorren ona. Kristo'k esan ebana: «Egiak askatuko zaitue». Orren billa ibilli zan, ta erriak, garaiz, ezagutu ta ondo agertu eban.

Erriko gizona il zan. Ta azkenean guztiak lagundu eutsoen Jainko-erriaren etxera, ta antxe esan eben: Au gizona, gizon ona izan da».

SOLOZABAL'TAR PAULIN

KONTU KONTARI

LAN EGUNAK GEITU?

Parkatu deidela irakurleak ondorengo mordollokeria. Deunak «kapakaidan» doaz azkenengo urteetan. Len etxeetan deunen lauki andiak izaten ziran, Joseba deuna, Andoni deuna ta abar. Orain olako laukirik ia iñun ez da ikusten. Egutegietan be egunen zenbakiak danak deunen izanekaz etorten ziran. Gaur ia miraria da deunen izenak dakarrezen egutegiak aurkitzea. Irudi lizuna bai ugari! Ainbeste on egiñaz bizitza igaro ebenak baiño lau-bost bider ezkondu diran zineko artistak obeto ikusten dira gaur. Oraingo deunak artista ta abeslari barrizaleak dira. Elizetan euretan be deunak atzeruntz duaz; eliza barrietan beintzat deun gitxi ikusten da. Apaizak eurak be deunak ez dituela gogoko esan daiteke.

Ta orain erreматea: Ortik kalte andiak datozela-ta deunen egunak kendu egin bear dirala esaten edo idazten jendea asi da. Españia'n (eta bere menpeko lurraldetan) aste barruko jai geiegi ei da. Ta jaiak dirala ta bide sortu diran zubi izeneko egunak geituaz iñun baiño lanik bako egun geiago ei da. Ortik ziar irakurri dogunez 143 egun ei dira urtean jai egiten doguzan egunak.

Egitan, ez da gitxi ala ba'da. Zenbakietan (matematikan) ez ei da utsik. Baiña nik uste dot orretarako diran tresna aurreratuenak be (elektroniko konputadorak, ta parkatu barriro be) zelako zeatztasunak eureri emon alako ondorena emoten dabeela. Ni beintzat igande, jai, ta urteko opor egunak danak zenbatuta 85 egunera ez naz eltzen. Astean 48 ordu lanean egin eta larunbat arratsaldeko atsedenagatik lanik bako eguntzat ez dogu artuko. Ta ezta beste egunetan lan ordu geiago sartuta kitotzen edo errekuperaten diran deunen jai egunak be.

Ara nire kontuak:

Igandeak	52
Kitotzen ez diran jaiak	8
Erri jaiak	3
Opor egunak	20
Guztira	83

Nik ez dot zubi egunik egiten, baiña eginda be kitotzen ba'dira lanik bako eguntzat ez dira artu bear.

Beraz nun dira lanik bako 143 egunak? Zubi egiten diran egun bakoitzean zazpi milla milloi laurlekoren kaltea ei da. Zenbaki orreik zelan egiñak diran nai neuke jakin! Orratio, egun orreitan izaten dan kaltea Españia'ko bizilagunei emotea edo diru zabaltzea ba'litz bakoitzari asko ez litzakigu elduko.

Deunen egunak dirala-ta bide zubi egun asko egiten dala?

Mende asko zear deunen egunak jai egin dira baiña orain arte ez zan zubirik. Beraz lanik egiten ez dan egun asko sartu ba'dira kendu asmatu barriak diran zubi egunak eta laga bakean mendez-mende ospatzen datozen deunen egunak.

Erlejio ikuspegitik begiratuaz ez nabil deunen egunak zaindu naian, euretan kristiñautasunari dagokion gauza gitxi egiten da-ta. Baiña deunen egunak larunbat edo igandera aldatu daitekezela diñoanari, ori egitea jai orreri lurra emotea litzakela erantzungo dautsat.

Bai, deunen egunak kentzea eskatzen dabeenak ekonomi aldetik begiratuaz eskatzen dabeela ez da ezpairik. Europa'ren maillan jarri biar ei gara lan egun kontuan. Ta irabazi kontuan zer?

Lanik barik ez da aurrera egiterik, bai, egia da au. Baiña zubi egunak kenduta alde gitxi egongo da gure ta Europa'ko lan egunetan. Guk deunen egunak jai egiten doguz eta arek guk baiño opor egun geiago artzen ditue.

Gaiñera aurrerabideari eskerrak lan egunak gitxitzen duaz edonun; ain zuzen Españia'ko Langille Batzar Burua'k lan orduak gitxitzeko eskatu dau egunotan «atrapau nai geunkezen errien parean, gaurko eguneri jagokoen eran eta langilleari benetako atsedena ta jakitea emoteko moduan jarriaz».

Alde batetik lan orduak gitxitzeko eskatzen eta bestetik lan egunak geitzeko. Zoratuta gabizela dirudi.

KAMIÑAZPI

TXOLINTXU

Ba-dira zenbait liburu mamiz aberatsak, esan-naiaz jakintsuak, xeetasun aski dakarzkitenak, idazleak eta jakinzaleak anitz bearrezko gauz arkitzeko egiñak. Beste zenbait, apainduriz lilluragarriak, ezatez sabelaundiak, itxura onekoak, baiñan geienbat gure liburutegietan betegarri lana egiten dutenak, baiñan probetxurik gutxi.

Beste batzuek umilki osatuak, txiki-mearrak, merkeak, arrokeri gabe jaioak, baiñan xaloak batez ere gizadiaren eziketarentzat ongi datozelako. Onetako liburu bat duzu, irakurle, ia ondarrabitar egin zaigun ondarrutar batek egiña, alegia «Kamiñazpi» izenordea erabiltzen duan Joxe Mari Etxaburu idazleak moldatua.

Irurogetamar orrietan irurogetabederatzi ipui dakarkizu, guztiak gipuzkera eder eta errez batean osatuak. Edozeiñek ulertzeko eran tajutua, ezjakiñak bezela jakintsuak, umeak bezela urteetan aurreratuak, oso-osorik ulertzeko eran. Ipuiak, umeentzat tajutuak dira geienbat, eta beren atsegiña sortarazteko bereziak. Baiñan, geok ere, urteetan aurrera-xamar goazenok, jolasteko aukera ederrik eta parre egiteko egokiera jatorrik arkitu dugu bere orrialdetatik barna.

Batikpat liburua umeentzat dalarik, ume guztientzat du egokitasun berezia, baiñan batez ere ikastoletako aurrentzat. Bertan, aukerabide ederra dute aurtxoak beren ikaskintzak aurrera eramateko, baita irakurtzen oitutzeko ere. Doai onek, euskera ikasten ari diranentzat edo ikasi nai lutekenentzat ere balio du. Ipuiak laburrak dira eta ain euskera errezean idatziak daudelarik gozo-gozo irakurtzen du batek, ekin ezkeroz, asieratik bukaeraraiño.

Esankizun aundikoak dira ipuiñok. Gizon edo emakume izatera iritxiko diran umetxoak, ikaskai ederrik arkituko dituzte bertan. Ona izatearen onurak, gaiztoa izatearen kalteak, maltzurra izatearen ondorenak, eta abar. Zenbaitetan parra egiñaz, gaiak txit egokiak dira andereiñoen laguntzarako, ipui ondorenak azertzeko, esakera borobiltzeko, adimenak argitzeko, gizakiak osatzeko, maitasuna goratzeko, gorrotoa gaitzetsitzeko... Marrazki-apainduriaz ongi ornitua dator. Labayen'tar Matxin margolariak asmatutako marrazkiak dituzu, aitortzen zaion trebetasunarekin. Margoz osatutako marrazkiak, umeen begiak zabaltzen ditu begietatik adimenetaraiño esan-naia dijoakien.

Beraz, ikusten duzutenez, ain bearrian gauden garai-garaiean etorria, on aski egingo duana. Liburu au erriko euskera indartzera dator. Erdezarko itz zatarrik gabe edozeiñek ulertzeko euskeraz. Euskeraz. Euskaldun etxe guztietan erabilli (ez egon) bear lukean liburua.

«TXOLINTXU»

Egillea: J. M. Etxaburu («Kamiñazpi»).

EDITORIAL EDILI

70 orri.

UXOLA



Zure ibillaldietan
lasaiago izateko,
gure Bankoak danerako
eskeintzen dautsuzan
bidarien txekeak
naiz eros-txartela
dozuz egokienak.

BANCO DE BILBAO

Onek emakumeen eskubideak onartzen ditu.

Aprobado por el Banco de España.

KiROLAK

EDDY MERCKX


Beti izan izan ditugu belgarrak maite, eta euren arteko arazoak eta auziak biotzakin aztertu, ta erabagi on eta ziurrak izan dagiezan otoi. Erri txikia, guretzat eredu, ta ain aundi ta indartsu ludi onetako ainbeste maillatan!: Lanean, ekintzan, politikan eta kiroletan, ta ez gitxien.

Mexiko'n, mexikar erriak jai aundiak sortu ditu, iñork, jakiñean, orretaratu gabe. Euren batek egin ba'leu lez edo indartsuago ospatu dabe belgatar onen garaipena. Merckx'ek ordu betean, txirrindu baten gaiñean, bere iztarren indarrez, ia berrogeta amar kilometro bete ditu, iñork iñoiz egin ez dabena.

Eguna be olakotxea zan, gogoragarria, guk miñez gogoratzen doguna, baiña or Merckx'en erakuspena: nekearen nekez, biotzaren bultzadaz, garaipena lortu dau; ez da etsi, ezta arrotu be, egin, egiten jakin izan dau, ta or gizona, dan eta izan bear litzaken neurrikoa.

Ezin dogu danok orren arin ibilli al izango, baiña, ekin? Ori Merckx baten eta edozein gizasemeren aukeran dago, nai izan bear...

IBUR



MERCKX GIZONA

Txirrindularien artean «txapeldun» dan gazte onen izena alde guztietan zabal dabil. Eta ez da arritzekoa agertu daben trebetasuna bardinbagea da-ta. Alde orretatik ezpairik ez da. Baiña bere ziñestearen zintzotasuna ez da txikiagoa. VI Paul Aita Santuak berak goraldu dau. Dagonillaren 27'gnean Castel-Gandolfo'n egin eban itzaldi baten auxe esan eban: «Kirola ez da guztia bizitzan; ez da bizitzarako naikoa dana be; ez da erlejiño bat. Baiña ba-da ara igoteko etenbako zurubi bat. Eta bear ba'da yakin barik ara zuzentzen da».

«Gaur egunean «txapeldun» dan kiroltzale baten itzak entzun dagiguzan; Eddy Merckx'ek auxe diño: «Nire bizitza guztian Kristo da etenbarik nere aurrean. Barren-barrendik Bera'gan ziñesten dot, egiz bizi izan zala ta bere Yaungoikotasunean». *Kiroltzaleentzat be, gaur iñoz baiño yagago, Kristo da bidea». Onaiño Aita Santuak esandako itzak.*

Ba-da oindiño geyago be. «Vita nouva», Pisa'ko egunerokoan itaun egin eutsoen: «Zuk uste dozu, Yesu-Kristo gizaldiak zear izan dan gizonik ospetsuena dala?» Merckx'ek erantzun eban: «Ez, Au ez da beste batzuekaz bardindu edo erkatu legiken gizon ospetsu bat. Kristo Yaungoikoaren Semea da. Onegaz erkatu legiken beste baten billa ibiltea burubakokeri bat da. «Hippiak» eurena dala entzutea ezin dot yasan, eta ondiño gitxiago, Kristo Marx'egaz erkatutea». «*Avvenire»k* 1972' *gngo Dagonillaren* 31'*gnean argitaldua.*

Orixe da, gaur egunean Yesu-Kristo'ren Yaungoikotasuna estaldu gurarik dabiltzan «sasi-yakitunentzat» erantzunik ederrena. Baita kristau-ziñestea mundu guztien aurrean autortzen be «txapeldun» izatea. Yarraitzale asko izango al dauz!

GAMA

BOLARIAK EUBA'N

Urrillaren 15'ean, S. Antonio auzunean, euskal-kirol eder bat ospatu zan. 14 talde onenbeste toki ta erritakoak eta guztira 130 morrosko, idartsuak batzuk... marrolariak besteak, alkar neurtze baketsuan txapelketa erabakitera alkartu ziranak.

Txapelketa garrantzitsua ta anaitasun mamitsua, egiz eta benetan, ementxe ikusi izan genduana!

Goizeko amaiketan asitako bolajaurtikea ordubatak aldera amaitu zan; tarteka, talde bakoitzeko batek, egiten zituan, tantu-arazoen azalkuntzak eta, azkenez aldra edo moltso bakoitzaren nagusitasun-mailla agertzea.

Lenengo; Galizia A.—2'grren; San Bartolome.—3'grren; San Antonio C. 4'grren; Bernagoitia.—5'grren; Galizia B.—6'grren; San Antonio B.—7'grren; Etxano.—8'garren; Garitondo B.—9'grren; Lezama.—10'grren Garitondo A.—11'grren; S. Antonio A.—12'grren; Galizia C.—13'grren; Laudio eta 14'grren; S. Bartolome B.

Ba-zegoan sari berezi bat be bakarrean tanturik geien egingo ebanarentzat eta, Betzuen'go Arregi'tar Josu, TXAPELDUN.

Jarraian, alkar zorion-agurtzeak, egin ondoren, ildako bolarien aldezko meza S. Antonio'ren eleizatxoan. Iruretan, barrien-barriz, bola-tokira jokoan galdutako indarrak eta izerdiak ber-irabazteko asmoz, bazkaltzera.

Zorion guztioi eta, jarrai, mutillak, Europa'ko txapelik aundiena buruan jarri arte.

ARKOTXA

MATXITXAKO VII

MATXINTZALARIAK

Itxas-lapurren aurka egiteko ez egoan beste biderik gudaketa gogorra sortutea baiño, eta onetarako batasunean alkartu bearra zan, eta erritar guztiak eretxi bakar-bategaz gurenda edo garaitzea jadetsi-arte «ekin eta ekin», atzerakuntza barik, sendo jokatu, eta garrantzi andiko asmo au aurrera eroateko, baserrietan morrosko bulartsuenak edo «orakari» edo erramulari izateko gertatu zirean, eta itxastarren artean gizon argi eta jakitunak aukeratu zirean «aixe-olanak» edo belak eta lemakari zurrak izateko.

Benetako su-gar bizitasuna erri osoan sortu zan, eta bere askatasun ikurriña jagita, dan-danak batera, geure erri eta itxaso zabalak askatu eta barriro erri-bizitasuna erakarteko gertatu.

Eta oi-dan lez, aldi estu eta larrietan, erritar guztien Batzar Nagosia ospatuta, ao-batean, batzarkideak gogoraturik ain egin bear itzal garrantzitsuari aurpegi emon bear yakola, bat-batera, oyu baten, irrintzi-didar zolian, MATXINLARI izateko zin-egin eben, olantxe itxas-lapurroi, gau eta egun, atseden barik, aurkituten dan tokian, billatuten ziran lekuan, oratu, atzemandu, eldu eta «arrain txintxiña» lez, dan-danak osoro MATXINDU, MAXITXU, birrindu, ezereztu bein eta betiko, eta orretara gure itxaso-zabalak askatu, garbitu eta erriak lokarri-estuntzakaz lotuak izan ziranak. bildurrez bizi izan direanai, gentza, bakea erakarri lan-bidez bizi daitezan.

Eta olantxe, aldi aretan, MATXINTZALARI aldra izena sortu zan. Gaur ere, arrantzalien «LOYETAN» edo Etxepe-lekuetan, euren itxas tresnak zainduteko tokiak dira eurok, toki oneitan ainbeste eratako itxas-gauzak aurkituten dira-ta: aixe-olanak, lotukiak, tertzak, tuntux, erramu, aizkora, burduntzi eta abar, baiña gauza guztion artean urtenena ASKA andi bat izaten da, ASKA onetara jaurtiten dabe arrain txikia, batez ere «txintxiña» deritxon, eta beste arrain «ondakin» guztiak, eta eskuan MOTROLLUA artu eta arrain naspiltzea indarrez jo ta jokeraz «naspiltza» guztia orea edo pataskea egiten da, eta «ore» oneri ainbat izen ezarriten yakoz: MATXIKUA, MAXITUA, MATXINDUA, MASIYA, MAMIÑA, MATXINTSUA, MAMINDUA eta abar, arrain-ore au izaten da «arrainkala» tokietan jaurti eta «maxi» aonen usaiñera ingeruetan direan arraiñak erakarteko eta sare-bidez sarean sartuteko.

Lenengotariko gizonak, gose izaten zanien, lan orixe egiten eben, jateko gogorra izaten zanian, eta agiñak edo ortzak ezin mamindu, jaki gogorra arri ganean ezarri eta beste arri bategaz, motrollua lez, jo ta joka, arek eta mamindu edo urundu arte, jateko eran imiñi arte.

Izen pillo onek gogora dakarsgu lantxo onen asikaldian aitatuten genduana: XIV eta XV eunkietan Euskalerri'ko itxasertzetan aurkituten dogun itxas-lur besorik entzutetsuenak ainbat izen ebazala, eta orain, izen zertzelada onetan, bardin dakusgu ASKA eta MOTROLLU bidez egiten dan arrain ore-lanak izen asko sortu dauzala, eta izen moltso oneik adierakera bardin-bardiñak itz guztietan direala, eta guztien artean MATXITXAKO izenik egoki eta garbiena, onetara: lenengo aurritzkia MATXI (masitxu, matxitxu, mamindu). TXA, bitartizkia ori TZA ordezko da (adierazorik, asko, aunitz, ugari, abar), eta KO atzizkiak (jakinerazoten dausku toki, leku, corta, abar). Erri batzuetan, KO atzizki au KU biurtuten da, onetara IBARRANGELU, BERRITU, ONDARRU, abar. Onetara ba, esan MATXITXAKO nai MATZAKU, nai MATXIKU eta bertotik sortu dirazen izen pilloak, guztiak adierazo nai dauskue toki baten izen bakarra.

Eta garai aretako izen moltsoaren goraberak, dakarsgu gaur dantzugun Euskerearen batasun deya, eta olantxe edonundik darantzugu gure mintzaerea alkartasunera erakarteko, euskaldun asko ez dira gogoratuten Euskerea bat dala, geu, geronek, gareala Euskera ez dakigunak, geu eta bakotxa alegindu bear garela Euskera bakar ori sakon ikasi eta edatuteko. Baña zoritxarrez, iñoiz baño argitasun aldi onetan, iñoiz baiño errezago Euskerea sakondu eta batasun ori jadetsiteko garai onetan, geroago eta urriñago «asauago» goazela esan daike, Benetan garai onetan Irakaslari jakitunak daukaguz, ikastolak, Eliztiak, Iztegiak, idaztiak, aldizkingiak, ainbat gauza esku eta gogoartean geure izkuntzea ikasi eta jakintza-bidez batasun alkartasuna lortuteko. Baiña geurartean «beatz-arria» edonun ezarriten dauskue, erraztasuna dagoan lekuan gaiztasuna sortu, aintxiñatik Euskaldunok batasuna jadetsitako tokietan eragozpenak imiñi. Benetan atsekabea garai onetan gurartean jazoten dana.

Gaur ezin ba'dogu jadetsi alkartze ori batasunera eroateko, XIV eta XV gizaldietan zetara egin leikean aldi aretako itzaren batasuna? Aldi aretan ez egoan ez Irakaslari, ez irakastola ez idaztirik, eta MATXITXAKO'ren izenak erakusten damosku urtietan eta gizaldietan, erri-aldietan zelako burutasunak izaten zirean, zelako erri- aldakuntzak jazoten zirean eta zelako goraberak sortuten zirean, olantxe izenak ere, gitxi-gora bera, aldatuten zirean.

Gaur, egunotan, beste orren beste geurartean jazoten da, olantxe dirakurgu Zornotza'ko tontortxuan dagoan idazkun baten, berton diño: AUCHAGANA, benetan, bitartizki CHA orrek itzaren izatea aldatuten dau, CHA orrek esan geinke «atxa» dalakoan, eta bere egizko izena AUTZAGANA da, obeto esateko AUNTZAGANA, aintxiñako gizaldietan toki garai orretara «baso-auntzak» edo «orein-auntzak igoten zirelako, toki orretatik ikusten dan edertasunak, esan geinke, «baso-auntz» edo «orein-auntzak» atseginduten zireala leku orretan.

(J. L. jarraituko da).

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 38
21-15-07 urrt.
BILBAO-5

ZIÑISMENA EZ DA IL

Au dan ederra! Au dan gelgarri ta zoragarria! England'en nago, eta, gaur arratsaldean izan dogun eleizkizunak biotza poztu, zabaldu ta goratu egin daust. Ziñismen-ausleak ziñismen-eusleak baiño askoz geiago diran lurralde onetan, orrelako ziñismen-agertzeak egiz gogoa poztu ta zalbatzen dau.

ELEIZEA

Eleiz barria da. Orain amar urte eregitako eleiz edo txadona. Anei lagun ondo artzen dauzan txadona. Bertan sartzen zaranean, ain argitsu ta ain goratzaille dalako, biotza zabaltzen yatsu. Antxiña eleizak illun egiten ziran; ziñismena illuna zalako-edo, txadonai be —eskutapen ikurrez edo— illuntasuna emoten yaken; gaur, baiña, gauzak argi ikusi nai doguzalako, argitasuna emoten yake. Txadon onek alde guztietatik argia agertzen dau; albo bietako leyoak zabal-zabal eta jagi-jagiak dira, ta bide batez, txadonak, goirako, donokirako, zerurako bide bedegarrak dirala erakusten dabe.

Txadon onen buruan, Pietro Annigoni margolari ospetsuak egindako margozki zoragarria agertzen da: ludi au su ta garretan ankaz-gora doanean, Ama Neskutsak gizadia bere besoetan artzen dau ta orrela okerretik azkatu.

Txadon au, 24'gnean, Andoni Claret deunaren egunean eskeindua izango da. Beste edozein txadon edo eleiza letz au be onetsita dago; baiña ez eskeinduta. Eskeintzea ta onespena ez dira bardin. Eskeintzea gotzain-txadon edo eleiz-nagosiak eta basilikak euki daroe. Nik diñodan txadon au ez da gotzain-txadona ezta basilikea be, baiña dan eder eta aundia dala-ta, Janzkordun edo Kardenal HEENAN'ek eta bere lagun dan Mahon Gotzaiñak eskeinduko dabe. Txadon au, Miren Biotzeko Semeak, Hayes'en dauken Miren-Biotzaren txadona da.


GUARKO ELEIZKIZUNA

Eleizkizun au Guazzelli Gotzain'ak, Westminster'eko beste Gotzainlagun danak egin dau. Iru inglandar mutil jaupaltsein edo diakono egiñak izan dira. Mutillok, 25 eta 26 urtedunak dira eta irurok belgundari izan gura ta ain zuzen be, Miren-Biotzeko Semeen arteko belgundariak. Txadona bete-beterik; beraz 1.000 inguru. Guazzelli Gotzaiña ta beste sei jaupari Mibisustarrak jaupea egin dabe. Eurokin batera, beste jaupari belgundari bi, biok irlandarrak.

Jaupa aurretik, ibildeuna txadonzear ogeiren bat mutil aurretik, jaupaerasole lez, uazala. Erriaren ebestiak eta arrenak entzunez biotza zabaltzen zan. Jaupa bitartean, eskeintza aldian, iru jaupaltseiñen gurasoak eskeintzak oindi edo altarara eroan dabez. Senar-emazteak alkarrekin, emazteak eskeintzak eskuratuz.

JAUNARTZEA

Iru jaupaltseiñok, orretarako almena artu dabela-ta, jauna emon dautse oindi deunera aurreratu diranai. Bederatzireun inguru izan dira Jauna artu dabenak. Eta ez uste izan erri-txadon onetan, gaur Jauna artu dabenak, orreik bakarrik izan dirala. Jaupa edo meza orren gain beste zazpi jaupa egin dira eleiz onetan eta osteak mordozka etorri dira jaunartzera.



Aurten dira irurogei urte Miren-Biotzeko Semeak ona, England'era etorri zirala. Emen erri onetan sendi bi bakarrik ziran kistar-orokar edo katolikoak; gaur erri-txadon bi dira, bakotxak lau milla inguru kistar orokar ditu. Beraz, gaur emen ni nagon erri-txadon onetan bi milla inguru kistarrek Jauna artu dabela-ta, bildur barik esan negike, euneko 50'ek beintzat euren Jaungoikoaganazko bearkunak beteten dabezala.

Lengo egunean irakurri neban, emen, England osoan, euneko 36'k euren Jaungoikoaganazko bearkuna beten dabela; baiña nire ustez, eta nik emen ikusten dotanez, orrek baiño gaiago dira. Eta, erri onen abestiak —erri abestiak eta eleizeranak— entzuteaz, biotza egiz poztu ta zabaltzen zan.

Ez esan ba, ziñismena iltzera doala, ziñismen kistarra bizirik dago England'en eta beste erkietan be. Goitik eta biotz-barrutik datorran ziñismena da au. Goiko Jaunari deskatsak ez dedilla gure Euskalerri maitean ziñismen ori epeldu ta gitxitu.

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S

O I Ñ A Z E A

Bitzitza oiñazea da. Beti izan da egia esaera au; gaur geiago. Millak urte dira... euriak lurra bustitzen dauala, alegia, malko garratzak jausten dira gizonaren begietatik zear; alan be, iñoiz be ez gaur aiña. Oiñazea alde guztietan. Oiñazea gizon eta emakume guztiak. Ainbat gauza asmatu ditu gizonak oiñazetik iges egiteko. Alperrik! Oiñazea ta bizitza batera doaz. Ta oiñazea ta bizitza batera ba'doaz, zein bide artu bear dan ikusi bear da. Zertarako ete da oiñazea? Zelan ezarri gure kristau izateari?

Itaun au dagit: Zergaitik bialtzen dauskuz Jainkoak ainbeste zoritxar, ainbeste gaitz bizitza ontan? Zergaitik izan leiteke Jainkoa ain gogorra, ain ankerra gurekin? Oiñazea munduaren gizaldi guztietan agiri da, alde guztietan gizon eta emakume guztietan.

Zer da ba oiñazea Jainkoaren asmoetan? Bear ba'da Jainkoak nire animea salbatzeko dauan bide bakarra izango da. Ainbaten zauria ikutu dot noski. Askok eta askok lur ontako gauzetan ipiñi dabe euren zoriona, euren biotza, euren ametsa. Dirua, aberastasunak, atseginkeriak... batzuk ez dabe beste jainkorik. Aztuta dauke Jainkoa, animea, erlejiñoa, beste bizitza. Ta, Jainkoak bear ba'da, gure begiak, itxita dagozan gure begiak esnatzeko, oiñazea bialtzen dausku. Beraz, Jainkoaren eskua dago sarritan gure oiñazean.

Oiñaze arazoa kendu-eziña da... gure erentzia. Gizonak, jaiotzatik eriotzerarte, ixuriko ditu malkoak. Oiñazea ez da zoritxarra, ez da zigorra; Jainkoaren eskua da, gure onerako, gure animea indartzeko. Bedeinkatu egizu Jainkoaren esku ori. Gogorra dala zure bizitza? Ekaitzak ingutzatzen zaituala? Ez zaite asarratu, ez egizu madarikatu zure zoria. Jainkoaren eskua dabil zure inguruan. Esan egizu: Jauna, egin bedi zure naia nire gauza guztietan; zoritxarrak inguratzen nauanean zatozkit laguntzera. Zure laguntzaz, zure argiaz, zure indarraz, lagunduta, aleginduko naiz.

GOIRIA

ORBEL BIDEZ

Orbelak lurrera datorkiguz. Elduaroko orri zimel, orituak. Bai, Udazkenean barrenduz, aurrera goaz bizi aldatzezko abiada oargarrian ta, eskerrak, aurtengoz oraindik egualdi onak izanik, pozik gabiltza ego aizearen epeltasun atsegiñez birikak garbitu ta, ikuspegi bakan ikusgarrietan gozartuz ta, batez be, atsartuz. Udazkenak, Euskalerriko Udazkenak azken-urteotan, onak izan oi doguz. Egunak motzago, laburrago izanarren beren grazi ta berezitasunezko iantzi apain ta, umaotuakaz zentzutua datorkigu biziari bere aldi, garaiko edertasun ta oldozbide sakona biotz-begietaratuz. Udan egun txar, kakatsu, zatar asko izan ba'doguz be, udazken onen asierako egunak iraunbide pozgarri, lotura baikorrez oiñarrituak datorkiguz ta, bere aize ta eguzki epelezko ontasun gozoa dagerkigu, baretasun amesgarri baten elburu, metaratze ikusgarriz.

Baserritarrak pozik ta kaletarrak ez gitxiago. Ikusi besterik ez dago iai-egun ta domeketan gazte ta, zar, mendi bazterrak zelan mendi-zalez betetzen diran. Bidebera, abestiak, irrintziak... batzuk ariñago, besteak geldiroago, bata-bestea agurtuz. Bero geiegirik barik, aize epel osasuntsuz... noiz udazkenean baiño, nun mendian baiño toki arnasgarri ta obarik? Unamuno zan batek gaztelar lautadatako osertz ta zerua goraltzen, aipatzen dauz. Gaztelerriko zeru oztinsakon ikusgarriak. Alaxe izango da bai, baiña guk, zerua eta lurra, bi alderdiak doguz eder. Zerua egun oskarbietako zabaldura sakonez ta, be-aldea, lurra iñungo apaintasun lilluragarri ta ederrenez.

Baiña, igo egin bear da. Neke apur bat iasan bear da, osasuna dan neke apur bat. Nun ikuspegi, lur ederragorik? Patxadaz, lasai, igo mendi bizkar, erpiñetara iakiteko, ikusteko gogo ta atsegiñez. Ikusi, begiratu ikusten dana ausnartu, oldoztuz. Igo mendietara Euskalerria ezagutuz. Gorbea, Sollube, Oiz, Bizkargi, Ernio, Txindoki, Aralar, Izarraitz, Aitzkorri, Auñamendi alderdiak ta, abar. Igo bai alaikiro, maitetsu, bidebera daurkikezun oinbide ta lagunartez... Begiak barrendu goi ta be-aldez, ezker ta eskumaz, mendiaren luze-zabalez... Begiratu gogoz, zentzuz, izatearen muin, izadiaren edertasun ta makurkeri, izadiaren aldatze oargarri ta urtearoz baso-oianetan daurkizun ixiltasun baketsu ta entzungarriari... Txori egaztada, zaldi-irrintzi, bei murrusa, ardi beekada apalez urratutako ixiltasun sakona!

Ta, izadi-aurkezte, mendiratze auetan galdetu, itaundu norberaren buruari: Ni nor, zer naiz ni? Zer naiz ni besteen artean? Zertarako etorri nintzan gero alde-egiteko? Zertarako, zertarako... Galderakizunak. Ta, Udabarria, Uda, Udazkena, Negua... Urtearo bakoitzak berea damosku. Udazken ondoren Negua ate-ondoan ta, orrek bildurtzen gaitu. Bizi danarentzat barriro be, Negu ondoren Udabarria dator ta Udabarriko egunetan itxaropenezko lorabidez ta bizi-ernamiñezko goratasun, goi-billatze arrigarriz, odol-barritze beroaren ikutu, berebiziko itzartze alai ta emoikorrez gure biotzetan be, alako bultzada gorati, sendoaren ametsbizigarriak sortzen dira... Bizia aurretik, nabaitzen dogu... Zer poza!

Udazkenak ostera etorri itun, baltzaren ate-ondora urreratzen gaitu tamalez. Baiña, Udazkenak bere negu-aurreko leguntasun epel, bere eztitasun samur, bigunaz laztantzen gaitu, eguzki gozo batek bialtzen dauskun irribarrez... Larra, zelai, landa, basoak oraindik bere ezetasun orlegiz ta, orria galtzen daben zugatzak orbantzen, orizkaturik dakusguz, orri zimelak banaka iausten diralarik... Beste aldez, lerradiak etenbako berdetasun illunean diraute. Ta, idatza arloak, or-emen, gorritasunezko ezti-margo begigarriaren alduaroko makurtasunean alako, gero lasterraren atadian ikuspegitzen gaitu... Bai, Udazkenak bere eder ta gozotasunezko erakutsiak damoskuz. Asi goizeko eroi-arte txuri-gorrizko eguzkiaren eguneratze ta illunabarretako urretasun dizditsuz, zoragarriak dira ego-aize emearen ikutu epelez. Bai mendia ordaukagu negu-aurreko eskeintza maitagarriz, deika... Deika ari iaku bai bere aundi-txikiz, bere zabal-estuz, arru ta erpiñez...

Mendiak ba'dauz bai bere lagunak, bere betiko mendizale, maitalleak... Gazte ta zar, mendibidez lagun barriak ezagutzen doguz, arpegi barriak... Batez be, al-izanik itzegin daigun baserritar ta artzaiakaz. Auetan datza mendiko ezaupide ta iakituria, mendiko bide ta ezkutuen barri. Mendiratzen dan oro ez da mendizale, ez izadi zale. Ba-dira gaiztoak, okerreriren bat egiten ezpadabe bakerik ez dabenak; ba-dira onto, ziza, perretxiku zaleak ta auek lurretik asko gorago ez dabe iasotzen begirik; ba-dira bai eiza-zaleak ta auen poza eiza besterik ez da. Azkenez ba-dira nai izan-arren mendiratu ezin diranak baiña ba-dauke etxean alako leio iriki, apal bat maitasunez begiratzeko. Ona emen Mujika-tar Tene'ren neurtitzak:

Nere gelako leiotik.—Dager ortze zati bat.—Berari zor dizkat nere.—Oldozkun gozoenak.

Naiz euzkiz iantzita egon.—Naiz odeiez izukor.—Naiz illargi geltsuz edo.—Naiz izarrez dizdikor.—Mintzo gozoz poztutzen du.—Nere gogo gaxua...—Eta, bere mintzo eske.—Zabaltzen det leiua!

MUNIATEGI'TAR SABIN

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK

Martin Aldazabal TENDERIA, 3

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Zestua

Oraindaiñokotan, erriko berriak zabaltzeko, gure aldetik, buru-auste aundirik ez genduan izaten. Gerta zitekean guztiaren berri, ain egoki, eman oi zuana-bai bagendukan. Baiñan, dakizuten bezela, ustekabean, bat-batean, gure adixkide Joxeba Sagarzazu'k (G. B.), beste bizitzara alde egin zigun.

Utsune aundia utzi digu bazterretan; Agur'eko txoko onetan ere, zer esanik ez.

Ala ta guztiz ere, gure errian berriak sortzen dira, ta iñorentzat jakingarri izan leizkelakoan, gure gogoko Joxe'k azaltzen zituan bezain egoki azalduko ez ditugun arren, arek utzitako zuloa zerbait berdintzen saiatzeko asmoekin natorkizue.

Igezko erriko semien arteko pelota-txapelketak arrera ona izan zualako batetik, eta bestetik, pelota-zaletasuna, gaztiengan batiz-bat, berotu bearra dagola-ta, aurten ere, ain zuzen, datorren illean, azaroan asteko asmotan, igezko baldintza berdiñetan, pelota-txapelketa eratu da. Oraingoz, izenak ematen, eta, jokatzeko asmotan diranak, ixillean gertzen; beste ezer ez da nabaitzen. Baiñan, zestuar guztiok, arrera jatorrez asiera eman, eta, txalo ugariz pelota-tokia beteko dezutela... Ori ez nuan pentsatu ere egin bear.

Gure erriak, dauzkan biztanleentzako, naiko ardotegi ba-dauzka. Lasai egon al izateko toki bearrean giñan. Eta, ara nundik, AMAYA izeneko akeita-etxe bat irikitzera dijoazte. Ez da aundia izango, baiñan, oso polita bai. Zestuarrontzat egoki datorkigun txokoa.

Ia lenbailen irikita ikusterik izaten degun.

TXIGUA

Ondarroa

SANTA KLARA'REN EGUNA ZALA-TA

Dagonillaren 12'an Santa Klara'ren eguna ospatu genduen, urtero lez. «Talaxa»ko Santa Klara'ren ermitatxora igon giñan, meza eder bat egin eta, amaitzeko, Santa Klara'ren bertso zaarrak abestu genduzan, Petra Laka ta bere lagunak buru zirala.

Aurten ermitatxoa barriztuta ta apainduta billatu dogu: erramuekin, itxasoko farol gorriberdiakin eta igerikai-salbabidas eder batekin.

Orrez gaiñera urtero-urtero gero ta jente geiago joaten da bertara ta aurten ermitxa aurreko zelaia jentez bete-bete eginda egoan.

Orregaitik, uste dot, jai au urrengo urteetan obeto antolatu biarko dogula:

1) *Eragozpenik ez ba'dago, Santa Klara'ko mezia radixotik arrantzaleeri emon, emisorako Imanol Urresti, Juan Kruz Bakeriza ta Jesús Mari Besterretxearen laguntasunagaz.*

2) *Bar-ambigu moduko bat jarri bertan, meza ostean berbetan, kontu-kontari gagozan artean eztarria bustitzeko.*

3) *Ta al izan ezkero, txistu ta danboliñ soiñua, biotzak alaitu ta oiñak bizkortzeko.*

Azkenez, gaurko au amaitzeko, ona emen gure adizkide Joakin Azpiri'k, Antigua'ko Amabirjiña'ri egindako bertso eder eta sakonak:

Zeru goietako izar dizdiratsu
Geure Ama kutun, Antigua'n zagoz Zu,
Bake santu batean eta zoriontsu.
Maitatu gaitezan argi egiguzu.
Antiguako Ama laztana
Bake billa gatoz zuregana.

Itxas gizon eta bai legortarrena,
Gaiñ ontan zaindari-erregin zarena,
Itxaropendunentzat Amarik onena,
Biurtu Ondarru kabirik baketsuena.
Eskatzen dautsugun bake ori
Jadetsi daigun egizu mirari.

Ipinten zaitugu gure bitarteko:
Gorrotoak kenduz, alkar maitatzeko,
Adimen illunduak fedez argitzeko,
Parkatzen bizi ta parkatzen iltzeko.
Parkatu, alkartu, maitatu
Ta egun aundian danok zeruratu.

J. GARITAONANDIA

Arratia

IRRINTZI

Oraindik oraintsu Iurre'ko IRRINTZI'ren adar-turuta entzun izan dogu, pozez eta zorionez, AGUR'en orrialdeetan. Euskera «Kastilanizatuakin»eta «Latinilizatuagaz» asarrez eta zearka bizi-bizirik bizi dan gaztedi mardularen abots itxaropentsua izanik, itxartu ta esnatuko al da loari ta txurrutari emona dan gaztedi alper, ardura ta ajolik bagea.

Oba'n izan nintzan-eta, goi artan izan nintzalarik, Iurre'ko Santa Lutzi'n izaten dan lako meza abestu gozo ta biotzkorra izaten zala-ta, barruratu nintzan, ba, entzutera. Baiña, leku ta toki askotan aiña «baina» emen bere eta, obatarrak ez ziran urratu.

Auzoan diran sator gibelerreai Jaungoikoa ta Erria euskal-abestiz goretsitea politika-ekintza dirudie, eta, obatar jator zintzoak asarre-masarrea erakutziz abesti iraulketan iñarduen.

Antxiñako baten bere, Anatxu Prakagorriek, iñongo iñon iñork egin ez dauana ementxe egin eben; kalteen bat egin bear-eta, besterik ezean... ur bedeinkatuontziak ustu ta leortu.

Aurtengo San Antoliñetan bere aalak eta bost egin zituezan, zozketa galerazo ta debekatuz eta, oztoporik ugari jarriz jaiari lurra jo-arazoteko. Guztia izan zan, bada, alperrik, jatorrak izan ziran garaille eta eper-baltzak buztana eperdiperatu bear izan eben.

Nasteak naste eta iskanbillak iskanbil, Oba'n ba-dogu, sayets-ikolentzat batez bere, gauz onik: Isidra'k gertauriko kazpel-saltsak, pilpilladak.

Euskeraren batasunerako eta onerako dala esanik, emen zelako astakeriak, erderaren ongarri eta euskeraren kaltegarri gorri:

«Euskaltzaindi errespetagarriak (?) alfabetatze kanpainarako bulego espezializatuak sortu ditu. Presaka prestatutako liburuxka imprimirian moldatuko dute».

Ez al litzakio obe izango errespeto errespetagarriari errespetozko itz errespetotsu bat, kapable ba'da beintzat, EUSKALTZAINDIA'ren ordezkotzat eskojitu ta señalatzia? Esaterako: «Baskuentzezaintza», «Euskalkuidantza» naiz antzerakoen bat.

Ekin, bada, eta jarrai. «Suabitatez» baiña, arren, ikurrin margogearen pean. Erria naskatzen.

LANDAJUELA'TAR A.

Berriz

Idazki au jaso dot oraintsu: «Karmele: lengo baten AGUR'ren irakurri dodanez, Murgoitio'ko San Juan'en baso-elizea barrutik ondo ta apain gelditu dala diñozu, eta kanpokaldea be apainduko daben itantzen dozu. Orixe gura dogu, benetan, eta orretarako lan egiten be aleginduko gara. Esan egizu AGUR'en, lagundu nai dabenak datozala ona, berba gutxi, zapatu ta domeketan».

Bai, adiskide, pozik artu dot zure idazki au, eta bereala bialtzen dot AGUR asteroko onetara. Izan be, asi dira barriro be zerbait egiten bertako auzoko gizonezkoak, baita beste laguntzaille batzuek be. Biotz alaitsuz artzekoa, benetan, guztiok alkartuta ikustea! Egia esan, ezin daikegu dana abadeen lepoan itzi; geuk be geure aldetik geure alegintxoa ipiñi bear dogu gauzak egiteko, premiñak osatzeko, adorea emoteko, besteai laguntzeko eta abar. Gaur egunean ezin daiteke besoak gurutzetuta egon, besteak egiten dabena ikusten, geuk be eskuartu bagarik. Guztiok ekin bear dautsagu lanari, baiña ez apurtzeko ta dana ankaz gora botateko, aurrera joteko ta egintza onurakorrak burutzeko baiño.

BARRIAK

Bilbo'ko Geisotegitik etxera ekarria izan da Zelaieta'tar Pedro, gizon zintzoa ta jatorra. Baiña ez dogu ikusi oraindiño San Juan'go elizpean. Ia noiz ikusten dozuen alkar Garro'tar Klaudio ta biok.

Urrillaren 14'an Bilbo'ko Gotzain jauna izan genduan Berriz'en lenengo aldiz, ainbat lagun egon ziran zortziterdietako Mezatan. Barriro be etorri zaitezala, Andoni jauna, Berriz'ko erri onetara.

Egun orretan, Elorrio'ko San Agustín'go elizan, Berasaluze'tar Xabier eskondu zan Azkarate'tar Mari Karmen ango neska on eta liraiñagaz. Zorionak bioi biotz-biotzez.

Jo ta ke diardue erri onetan «Censo» deritxon batzarretan, D. Jesús'en ardurapean. Guztiak ez dira gustora geldituko; baiña zuk, D. Jesús, aurrera beti, zure lanean zintzo jokatuaz, egizaleak zeugaz dagoz-ta.

KARMELE

Tolosa

TEODORO AGOTE

Nor, guda aurreko mendizalea danik, ez da beratzaz oroitzen! Euskal mendietatik barneratzen zanak bere bearrik izan zuan. Gurdibideak eta bidetxiurrak, arkaitzak eta zugaitzak berak ipiñitako «T. A.» eta «fletxaz» baliatu izango zan. Orduan ez zegoan gaur ainbat bidezabal, eta zeiñen ongi etortzen zan, esatebaterako, Aralar'ko baso itxietan bere laguntza.

Ba Urrilla'k 15 zituala Tolosa'ko «Uzturre Mendizale Taldeak» jai bat eratu zuan bere omenez. Alkarte onek eratutako ibillaldiak eta leiaketetan igaz irabazle gertatu ziranei sariak eman zitzaizkien. Teodoro'ri ere oroitzezko plaka bat. Euskal dantz eta soiñuak, izan ziran. Jendea erruz. Teodoro'ren omenez bildutako bazkari batez eman zitzaion bukaera.

Nik joaterik ez nuan izan, «Zeleta»ri egun berean egin zitzaion omenaldirako itz emanda bainengoan. Baiñan gogoz beenik, Teodoro'rekin nintzan gure Uzturre mendian. Zorionak, Teodoro!

EZTAIAK

Gastesi'tar Xabier tolosar adiskidea eta Belauntza'ko «Beotibar» baserriko Saizar'tar Nekane neskatx panpoxa, Urrilla'ren 21'ean ezkondu dira Sakramentinoen eleizan. Bazkaria, Azpiroz'ko, «Alai» ostatuan. Xabier, «Udaberri» taldekoa danez, auek saiatu ziran berez egun zoragarri bat apaintzen eta edertzen.

Dantza, umoria eta zoriona. Soiñua eta «Gona gorri gorria...» eta beste milla abesti. Zaarrak gaztetu. Tristeak alaitu. Eta olako jaiak ongi artu. Naigabealdiak etorriko dirala ez aaztu. Euskal baratza kimu berriaz txertatu. Ezkonberriak zijoaztenean... agurtu.

Zorionak bikoteari, eta anitz urtetarako!

JOSEBA SAGARZAZU

Asko naigabetu ginduan bere eriotzaren berriak. Zenbatez, ba, lenago alkarrekin egon ote giñan alai eta itxaropentsu esku artean darabilkigun euskal arazoaz itzegiten? Baiñan, gu ez gera ezer; Jauna da oro! G. B.

Bere eleizkizunetara joaterik ez genuan izan. Alabaiñan, Tolosa'ko Sakramentino'etan, Azilla'ren 19 gnean, goizeko amarterdietan meza bat emango da bere gogoaren aldez. Zeztuar jator izan onen adiskideak, aalik beintzat, etorri ditezke meza ontara.

ZUGAITZ BEREZI BAT

Uraldeak orroka datoztenean batzuetan eraman egiten dute aurrean jartzen zaiona. Besteetan, ori bera ekar. Idiakez jauregiaren aurrekoz, ibaia zabalena dan uren erdian, lurtxo bat azaldu zan bein uralde baten ondoren. Lurtxo au berez zabaldu zan. Lurtxo ontara iñork ez daki zeiñek ekarri zuan zugaitz azi bat. Urak, noski. Eta ernetzen asi, aunditzen. Gaur tantai bat egiñik dago. Bere inguruko bedar berdea norbaitek zaintzen du, garbitzen du. Nola ote diteke alako toki batean orrelako zugaitz bat ateratzea? Tolosar askok begiratzen diote. Batzuek txukundu, naiz uretatik barna joan bear izan. Jesus Ansorena'k il ez dedin, egunero errezatzen omen dio otoitz au: «Aita guria, etzazula il zugaitz neria».

Nik ere zeredozer egin nai, eta bertso au egin:

Paradisuan sagar tantaia
zegoan era berean,
zugaitz polit bat altxatutzen da
Oria ibai erdian;
ordu guzitan egon oi naiz ni
dedala begi aurrean,
nolaz poliki oso, poliki
dijoan zeru bidean.

UXOLA

Galdakano

SAGARTZATZU'TAR JOSEBA

AGUR'aren 58'gna eskuratuaz batera irakurri genduban, lenengo orri-aldean, oso samindu gaitun izapar baltza: Sagartzatzu'tar Joseba, Zestuan, Urrillaren 12'gnean, il da (G. B.); eta egun batzuk gerotxoago «Zeruko Argia»n bardin antzera, argazki ta guzti.

Euskel-idazle kementsua, ondo dakigunez benetako euskotar au, naita alegin guztiak egin argazki ortatik zerbait gogoratu naian, ez genduban arpegiz ezagutzen, baiña bai bere idazkera mamintsu ta erri-zale sakonetatik eta bere benetako adizkideak azaldu daustenetik. Bere Erria benetan maite ebana, ezin leitekean beste eratara izan be-eta, gipuzkera garbi ulerkor txukuna erabillen bere idazkietan.

Gure izkuntzea loikeri barik ikusi nai dogunok, atsegiñez irakurten geuntsanak, bai Zestua'tik idatziten ebanean, baita idazlan sakonagoak idazten ebazanean be.

Beraz, euskel-idazle azkar bat galdu dogu, eta, zelan ez!, bear-bearreko genduban eusko anai zintzo bat. Goyan Bego aberkide zintzoa, ta gero arte.

«UDALAITZ»ERI

Orain illabete inguru, Arrasate'n izan nintzan, aldi andirik ez dala argitaldu neban «Menditar Artezari Laburra» idaztiñoa ango idaztitegietan aurkeztuaz, erri a zear bira bat egitera, eta «Udalaitz» ezagutu ta beragaz itz egitea, atsegin izango yatan letz, toki bitan edo irutan itandu neban, baiña, alan bear-edo, izen-orde orrekin ezin izan neban nai nuena aurkitu. Bear ba'da, iñon baiño obeto, nere idaztiñoak salduteko itxi nebazan «IRE» idaztitegian jakin al izango neban, baiña bertatik urrun nengoan, arte, enintzan gogoratu.

Laster izango naiz barriz erri ortatik, eta ea zori obea izaten dodan. Benetan atsegingarri izango litzaket euskel idazle erri-zale orrekin aurkitzea.

EZKONTZEA

Igaro dogun Urrillaren 29'gnean, erriko txadon nagusian, erri ontako Blesa'tar Miren-Nekane neskatilla eder zintzoa ta Gaztelu-Elexabeitia'ko Intxaurraga'tar Jagoba mutil jatorra ezkondu dira. Gure zorionak AGUR onen bitartez, eta urte askotarako izango al dabe artu daben biziera barria.

UDEGOYENA

Guk, bizkaitarrok, Udegoyena esaten dautsogun oni, gipuzkoar geyen batek Udazkena esaten dautse urtearen irugarren zati oni, alan bear-edo, azkenengo urteotan, eguraldirik onenak egiten dauskuzan aldi oni. Udazkenean, putz geyen egiten dauskun aizea, Bizkaia'n beintzat, Ego-aixea izaten da, mendizaleentzat egokia, beste edonoiz baiño obeto, argiago ikusten diralako inguruak.

Gure baserritarrak, oraindiño be, «gaztaiña aixea» esaten dautse oni, lenago izan ziran gaztaiñadi ugariak elduta, garau eder gozoak eratsiteko aldi egokia izaten zalako, Baiña gure aldi ontan? ez dau merezi aixe onek orretara deitua izatea; Bizkai guztian gaztaiñadi bi bakarrik dagozalako bizirik, bata Mugarra-aitz azpian, Durango aldera, ta bestea, Eskuaratz ondoan Mañari aldetik, eta orretariko zugaitz banakaren bat Zeberio aldean.

Aixe onek, lerro oneik idazten gagozanean be, ederto egiten dausku putz; indabak ez dira asko, ta arto banakak elduteko be ederra izaten da, baita abereentzat azpigarri izango diran ide edo ire ta beste azpigarriak pillatu ta basetxe ingurura ekarteko be. Beraz, bizkor ibilli baserritar maiteak, ez da luzarorako izango, bear ba'da, eguraldi au-ta.

BASA-JAUN

Usansolo

Gurutz bidea.

Nork ez dauz entzun mundutik zear gurutzea bere sorbaldean dabillen Amerika'tar baten joan-etorriak? Gai oneri buruz, ainbat barriketa entzun doguz. Egia non dagoan ikusteko ez naiz ni iñor epaille egiteko, baiña bera ta bere sendiagaz egun bi egin ondoren, geure etxean, bai zerbait azaltzeko:

Urrilleko amabian, Berriz'tik gentozan bazkaltze baten ondoren, ta or non ikusten dogun gizaseme ori guturzea sorbaldean ebala. Mundutik zear ebillela jakitun giñan, egun beratan izparringi baten agertu zan albistearen bitartez, baiña jaramon aundirik egin barik, zororen baten txotxolokeriak dirala asmatuaz.

Baiña bera ikusiaz, betikoa: Kontxo! agurtu egin bear dogu, ia nondik urtetan dauskun! gure barruari esan geuntzan, ta beste barik berebilla lotu ta alkarrizketa bat izatera, beragana eldu. Ordu lauren bat egin genduan izketan ta garbi ikusi genduan oker bidean egon leitekela, baiña siñismedun gizona zala. Alkarrizketa orretan gengozala bere emazte ta lau semealaba eldu ziran, ta naita garbi ta alaitsu ikusi, errukitu giñan, ta gure etxea eskeiñi, inguruan egin bear ebezan egunetarako. Emendik gure alkar ezagutzea ta zergaitik esan dodan len, zerbait azaldu bear dodala.

Jaunaren ordezko Kristau artzain egin zala, amar bat urte izango dira. Ardi galduen billa ibiltea bere biotzeko lana. Ta izakera ori elburutzat artuaz, bere lan geiena Kaliporni aldean izan da. «Hippy» guztiak, neska nai mutil, erlijio batekoak nai bestekoak, maiteenak. Maitasun bidera ardi galdu areik ekarteko, bera be «hippy» biurtu zan, Jesus bizi da, ta maite izan bear dozu zure anaia esanaz, lenengo ta bein bere izakereagaz gai ori beteaz.

Zigortua batzutan, goratua noizean bein, onela igaro zituan lenengo urteak, azken baten guztiz ezagutua izan arte. Bere esanaz, orixe izan da neketsuena. Ezkondua dan ezkero ta lau semealabagaz, ez eban astirik izaten sendi barruan egoteko, ta txarren, aita ospetsu bat daukiela ta, bere bildurrik aundiena, bere semetxoak ez bearrezko bideetatik joko ebela, arrokeriz ta lasaikerian bizirik.

Ba'litzakela ori egia izatea, erantzun geuntzan, baiña ez genduala uste ori zuzentzeko, artu dauan bidea egokiena danik. Sendi bizitza bearrezkoa dala bai, baiña gizartetik alde egitea, beste gazteen artetik aldatzea, askatasun barik, euren nortasuna ez zala erreza izango, ainbat bider esan geuntzan. Entzun apaltasunean ta eskerrak emon be gure itzaldiagaitik, baiña Jesus bizirik dagoala gizarteari erakustea dala bere bidea, bere semeak galdu barik beste alde batetik; ta egun bi orreik igaro ondoren gure etxean, bide zabalera barriro, Jesús'en izena agoan ebala.

Azken agurra egin baiño len otoitz bero baten alkartu giñan sendi biok, ta otoi orretan Euskal-Erriaren alde, bere irauntasunaren alde, bere dei garbienak: «Jesús, zuk esan zenduan, bi edo geiago zure izenean alkartzen direnean, Zu zagozala eurekaz. Emen gagoz gu siñismen orregaz, Zuri dei bat egitera. Euskal-Erria ezagutu dot, bere seme, lur, izkuntza zar ta oituraren laburpen bat ikusiaz, dana siñismen bero bategaz bat eginda, ta berentzat iraunpen zoragarriena eskatzen dautzut, neure ibilli-aldi luze onetan, ez dot beralako bat ikusi-ta».

Otoitz onen ondoren agurra. Goazen lengo arira. Jesús danon epaille, baiña artean, nire ustez beintzat, gizon zintzo bat gure artean izan dogula esan bearrean nago.

ATXUTEGI'TAR JULENE

BEGOÑA BERBIZTUAZ

Ia zortzireun urteetan Begoña'ko Andra Mari izenegaz, Bizkai'ko seme-alabaentzat kutun-kutuna ta izar argia izan da. Lenen Bizkai guztia euskaldun zanean, Artagan mendixkako elizatxoan otoi ta goralmenak euskeraz bakarrik egiten ziran. Andra Mariaganako maitasunean ondo oiñarritu ziran bai itxastarrak, bai solo ta menditarrak baita erri guztietakoak ere. Aberats edo beartsu: gizon zein andrazko; ta jakitun zein ezjakin. Emengo guztiak ikasi eben Jainko bakar bat egoala. Ta Bitarteko bakar bat, Jainko gizon egiña dan Kristo Jesus. Baiña baita ere ikasi eben bitarteko dan Kristo'k beragana elduteko errezago beste bitarteko bat emon euskula: biguna bera, garbia bera, gugaitik otoilari bera. Andra Maria da Ama ori.

Bizkai'an erriak Jainkoaren ta gizon guztien ama dan Andra Mariari Begoña deitu eutson. Berari Artagan'en elizatxo bat egin eutsoen. Gero gutxi zalako andiago bat. Ta azkenez, andi-andi ta ederrago bat. Antxe dabe Bizkai'koak diran Bizkai'an bizi diran enparau danentzat Andra Mariaren irudi zoragarria. Gure antxiñetako Andra zabal ta barre ezti dun bat dirudi. Erregin bezela aulkian jarrita ta bere belaun ganean ume Jesus jasarrita dauala. Irudi maitagarria bera! Beragana eldu dira poz eta atsekabean Bizkai guztikoak; berberaren bitartez Jauna ezagunago ta maiteago izan da. Ama orrek, Jesús, bera baiño gorago dagoala irakatsi dausku. Guk Andra Mariagaz andrazko Jainko bat ez dogu egin, paganotarrak egiten eben legez. Ta guk Andra Maria Ebanjelioan agertzen dan lez artu dogu. Jainkoaren ta gizonen Ama. Kristaurik garbi, zuzen ta onena bezela. Ez Jainko bezela. Baiña bai otoilari indartsu legez.

Urteak joan ta urteak etorri len dana euskalduna zan erria erdaldun biurtu zan geien bat; eta orain urte batzuk dirala, eleiza orretan euskera guztiz edo ia guztiz alde batera itxia izan zan. Lotsagarria Bizkai'ko Zaindaria erdaldun bakarrik egitea! Ez mezarik ez beste eleizkizunik euskeraz. Esate baterako, Begoña'n, euskeraz bakarrik ekiana, euskera aztuta, askoren erruz eta itxikeriz.

Urte orreik joan ziran zorionez. Begoña'ko Andra Mariak ikasi dau barriz ere bere lenengo izkuntza. Orain ba-ditugu bertan meza ta beste eleizkizun batzuk ere euskeraz. Ez oraindiño guztiz, baiña Begoña berbiztuaz doala ezagunezagun da. Euskaldun guztiok pozten gara Begoña'ko Ama danon Ama dalako.

Ta orain or Begoña'n batez ere ta beste eleiz askotan gogoz abestuten dan Intxausti'tar Arturo'k ta neuk egindako ereserkia: Ona emen bera:

Begoña'ko Andra Mari, Bizkai'ko Zaindari:
zure seme maitaleak Zugana kantari.
Itxas-gizon siñestunak Zugan dabe kabi:
artzain gaixo menditarrak Zugan euren begi.
Lugin eta langilleak Zuri otoilari,
aberatsak ta txiroak zaituela argi.
Ama maite biotzeko, bigun eta garbi!
Bizkai'ko seme-alabak artu ta zain beti!

Zorionak lengo itxutasuna galdurik, Begoña'ri bizi barri au emoten alegintzen diranai.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

Oianak Len, Orain ta Gero

(Laburpena)

«Real Sociedad de Amigos del Pais»ek gure baserritar giroan izan eban eragiña:

XVIII gizaldia izan zan Alkarte orren une gorena, ekintza ta igidura guztiak bultzatzen ebazala. Lugintza, abelazkuntza ta oiangintza laguntzeko, baita gari, garagar eta arto mota barriak eta antzezko larrak aztertzeko, ikasgaiak eta batzarrak sortu-arazi zituan.

Gure itxasoak, Lurbarrieta'ko makaillauz arrain-barriztu ta geitzen saiatu zan; meatz billaketea lagundu; olak, arraindegi ta lantegiak obatzeko sariak eskeiñi ta abar...

Elhuyen ipar-euskaldun anaiak, Bergara'ko Ikastola-lantegian, «wolfram»a idoro eben, bere azidoa banatzetik, eta platinoari buruz ere azterketak egin ango landikeekin batera. Lan orreik garrantzi aundia izan eben Suezi'n eta Alemani'n.

1784'gn urtean, 1.272 bazkide izan zituan alkarte onek. 1771'gnetik 1793'gneraiño, bere batzar-agirien laburketak entzute aundia izan eben. 1799'gn urtetik 1804'gneraiño natur-jakintzen urterokoak argitaratu zituan.

Bizkai'ko oianak gizaldi onen asieran:

XVIII ta XIX gizaldietan, ia Bizkai osoa areitz, pago, gaztain eta beste motetako zugaitzez estalia zan, basetxe eta solo urriez goietan zipriztindurik, egi ta ibarretan ugaritzen zirala.

Gizaldi ontako asieran baiña, Bizkai'ko basoak ondapen osoan egozan. Itxas-gizon trebeek erabilliko ebezan ainbeste ontzi eder, areitz areikin egiñak izan ziran; gure meatz aberatsetako burdin ugaria, egur-ikatzez egin al izan zuten ol areik; abe ta oltzar eta gure sukaldeetako egurra... or zertan geratu ziran ioanak!

Berezko baso-legeari jaramonik egin barik, burugabeko mozketea izan zan: eraikuntzaren betebearrak, erregaien bearkunak eta erri-basoen salketak, gure oianen ondapena ekarri eben, mendiak soilduaz. Orren atzetik, areitzaren eta gaztaiñondoaren eritasunak agertu ziran, gure zugaitz-mota onenak itzaliaraziaz.

Euskal-Aldundiak oianen eragille:

Gure Aldundiak izan dira gure baserrietarako obatzailleak, eta Bizkai'koak, Adan de Yarza'tar Maren'en lanari yarraituaz, 1916'gn urtean Baso-Laguntzea eratu ta urrengo urteetan, 42 udalekin batuta, 1917 ta 1918'gn urteetan, 400 metro gora arteko piñu-insigni landaketa egin eban gure mendietan, eta 400'etik gorago lazari ta baso-lerraz eta beste motakoekin, esate baterako, Japon'eko zuzi ta kamysiparis lawsoniana'kin.

Aldundiak emon eben ikasbide ori, jende askok yarraitu eban eta baso barriak, mozketak neurtuta, ta tarte-garbiketea edo ale-banatzea, geienetan, etxe eta papergitzarako geien bear ziranean egin dira, eta olan, Bizkai'ko mendiak, urrialdi areitan, nun-oratu garrantzidunak gertatu ziran.

1966'gn urtean, Madrill'en izandako munduko VI oian-jakintza batzarrean, batzarkideak —arteko errusitar 12 oian-jakintsu— Barazar'en 50 urte leenago landaturiko zuzi, txamisypariz eta lerrak ikusi aal izan ebezan. Tamala benetan, 1920'gnaren inguruan, demokrazi-ordezkaritza amaiturik, Sota'k lau euskal-aldunditzetarako asmatu eban egitamua ezin bete izan zala. Bestelan, orain, aldundi oneik baso-abetasrasun aundi baten jabeak izango lirake, ta kanpotik egur eta egur-ore ekarketak ez litzaikigukez ain bearrezkoak izango.

Gaiñera, VI munduko oian-jakintza batzar orri pozez erakutsiko geuntzan: «Oiana munduko ekonomiaren serbitzurako» egia zala 50 urtetik ona, aurreikustedun eta benetalaria dan erri txiki onetan.

MESANZA'TAR BERNARTA
Landizti Ijiñeru Irakaslea

Filolojiazko jardunak

Dr. CALVEZ LAGUARTA

IZKUNTZALARIA

Zaragoza'ko izkuntzalari jakintsu au orain gutxi il berria dugu. (G. B.).

D. Eduardo Calvez jaunaren erioak asko samindu gaitu, Linguistika eta Filolojia arloan maisu bait zan eta euskaldunok zerbait zor dioguna. Aspaldiko urteetan gaztelera izkuntza eraberritu naiez leiatzen zan, bai mami eta bai azalez, eta batik bat ortografia arazoa bere eskuan artuta zuan eta lanean ari zan Zaragoza'ko «*Fernando El Católico*» alkargoaren barruan.

Aragoi'ko uri nagusi ortan ziardun beste laguntzaille zenbaitekin: Palacios, Muñoz Alonso, Ara Blesa, Zaragueta eta erbesteko Strhol, Perucca, Aloys ta Wensel izkuntzalari jakintsuekin.

1.968'garren urtean egindako batzarrean erabilli eta aztertu zuten gaia, auxe izan zan: «*Izkuntza oraingotzea, aldaketaren bitartez*».

Izkuntzaren filosofiari buruzko azterketa alde batera utzirik ORTOGRAFIA'ri opa zizkioten berrizte alegiñak bakarrik aitatuko ditugu.

Eta ontan Dr. Calvez'en iritzia onela azaltzen zaigu: «Izkuntza bat alik eta geien «*fonetika*» arauz erabilli bear litzakeala». Ez da, naski asmo berria. Gaztelerazko «*Real Academia de la Lengua Española*» sortu aurretik Nebrija, Gonzalo Correa ta antziñako gramatikariek ori bera uste izan zuten. Gure Arana-Goiri'k euskerarentzat ez zuan besterik gura izan.

Ortografia erreztu bear dala arrazoiz eskatzen zuan. Calvez jaunak idaz-lan asko argitaratuak zituan alperrikako zailtasunaren aurka.

Joan dan urtean «Heraldo de Aragon»en agertutako lan batean onela ziotsan: «actualicemos la Ortografía española como ya lo han hecho con la italiana y la japonesa; y se practica también en el idioma ruso, en vascuence y en turco...»

Eta gaztelerazko ortografian *J* iskia jartzen zuan *Ge* eta *Gi* ren ordez; orobat *Z* eta *K C* eta *Q'ren* lekuan; *V*'n ordez beti *B*.

Ez dago esan bearrik *H* izki naspillatzaillea erabat kentzeko iritzikoa zala.

«*SASI-BATASUNA*» bere liburutxoan auzi ori nola dagon gure atrean esanik nago eta ez noa berriro aipatzera.

Dr. Calvez iritzi ortakoa zala garbi ikusten duzute eta guk zentzuz jokatzekotan aragoitar maisu orren urratzetan jarraitzea obe genduke. Pompeu Fabra katalandar izkuntzalari nagusienak ez zuan beste asmorik izan bere «*filolojiazko jardunetan*» emen AGUR'en agertzen joan natzaizuten eran.

Aldi aurrerakoi ontan «gaurkotasuna» eskatzen dutenok ez al da parregarri San Millan'go agirian dagon ortografia euskerarentzat eredutzat artzea?...

C. S. M. agiri zar ortan «BAHAHESTU» gaurko MAEZTU dugu; GERFALZAHA izena GEZALZA bear lukeana; HAMEZAHA, orain guztiok AMEZAGA esaten duguna; abar eta abar J. M. Sagastia O. S. B. idazle bizkaitarrak erakusten digunez. (B. Americano de Estudios Vascos, Buenos Aires. A propósito de un *Nuevo Mapa del País vasco*» 1971-1972).

Utzitzagun zarkeeriak eta goazen gaurkotasunez aurrera bide garbi eta errezenetatik.

Gure idazle batek «Heraldo de Aragón»en Eduardo Calvez'ek argitaraturiko lana azterturik onoko eranskin au ipiñi zion:

«Orra iru erri beren izkuntzaren idazkera erraztekoan biderik oberena artzea autatu dutenak: EUSKALDUNAK, ERRUSITARRAK eta TURKIARRAK»... Oien artean, ain zuzen ere, gurea, erdal idazleak aitortzen duanez. Orren bearrezko ote zuan gure izkuntzak orain arrerazi nai dioten bidea?... Orren nai ta naiezkoa al zuan gure izkuntzak, gaur artu ta biar aiza dezaketen izki ori artzea?... Ona emen *irurogeitatik ogei ta amar* itz atxedun... EZ AL DA GEIEGI?»

Bukatzeko: Calvez izkuntzalari ospetsua. Goyan Bego! Aren lanak irakurriaz eskerronez artu ditugula aitor dezagun eta ikus dezatela ez gerala norbaitzuk uste izan duten bezin ezjakin eta «sasi».

ANTONIO M.ª LABAYEN

MALPIKA'REN DORREA

Gure bilobtar Guiard ta Larrauri'tar Topil argitsuari jarraituz, Barrenkale Barrena ta Dorre kaleetako bide-gurutz edo zoko zuzenean, Bilbo'ko Zazpi-kaleetako laupabost kaleen asiera-amaikeraz zer ikusia dauan Dorre-etxezar izugarri bategaz tril dagigu. Gaur egun ormadi oni Yohn edo «La Bolsa» burdin-saltokia deritxo.

Labur be labur, bere edestitxo polita esan bear dautsuet. Aspaldi baten, Arbieto'rena, Salazar'ena ta baita Bilbozaarrekoa be deitua izan zala dirauskue. Gaurkoan, Malpika'ren Dorre izenaz be deitu oi iako. Azkenengo jabetasun agiria Malpika'ren Markesgoarena izan bai zan ausaz.

Ori ta be Guiard ospetsuak, bere lau ataleko Bilbo'ko Edestian dirauskun lez, bere gora ta zergaiti berezia Barrenkaleagaz eban ain zuzen, ba, ango kaiordetik ekarririko salgai geienak, garai artako sal-erosle bikaiñenak bide zirala, etxezar onetan saldu oi ziran ta ortik, atan be, «Bolsa» edo sal-erosketan, aremonetan erabilli oi zan toki aparta, bein-beiñena, izen orregaz adierazten zan. Au da ba, zalantzik gabe, «Bolsa» izenaren oiñarri arteza. Geroko baten, gureak atzerrian, Beljika'ko Brujas'en eta, olakoren bat izan ebela edestiak be ba-dirausku.

Burdin saltoki onen beste izena, «Yohn» izanez, onetzaz be asko luzatu barik, ara: Dalako Yohn au, ia berreun urte aurretik Bilbo'ra etorririko austriatar gazte sutsu, bipil bat ei zan. Lenengo ogipekoa, langille lez irabazi ei eban, ta guenez, bere buru-argitasun eta eten gabeko adorea bide zirala, bere izeneko burdindegiaren jabe bakarra izateraiño eldu.

Egunotan, Malpika'ko Dorrearen aurreko-aldean jai eraspentsu polit bat izan dogu Begoña'ko Ama Birjiñaren omenez. Igezkoa baiño politagoa oraindikan. Argiak be barriztu dabez. Laister, ortik dabiltzan txurrutalariak eta erri zeiak emoniko txindiekaz, Etxe-dorrearen aurre-alde guztia be barriztuko dabela diñoe. Aurten, Ama Birjiñaren irudia be osotu, berriztu ta lengo lekuan jarri dabe. Beti lez, Santixau Eliz Nagusi'ko abadeburuak, Mezo'tar Epifani jaunak itzalditxo bat egin ondoren, erri guztiak aobatez, «Agur Erregiña» abestu eban, Urteburuan il diran guztiakatik be, «Agur Mari» bat otoiztu zan, ta azkenez «Agur Jesus'en Ama» gure euskera maite errikoian eresi.

Jendetzeak ingurumarietako kale guztiak betetan ebazan. A zan biotz-gogoetako poz jarioa! Gerora, beti lez, erromeri alaitsua izan gendun. Ta datorren urterarte! Bien artean, txurrutalariak egunero bertako arri-maillara jaurtzen dituezan txintxiñekaz, datorren Urrillerako, J. 1, diru pilloak metatuko dituez, ta Santa Mariña'ko bularreko gaixoentzat eskeiñi. Au bai gizarte arazo txikia, baiña benetakoa! Jarrai ba, Pelota'ko kale ontan Begoña'ko Ama Neskutsari otoizten ta sakel erdi-ustuak garbitzen. Onela ziru-ziur, Errioxa'ko ardao beroak ez dautsue, ez beiñ, kalterik egingo.

ARREGI'TAR JOSU

AGUR

III URTEA
62 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - AZILLA - 18

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ERESLARIAK

Il onetan gure errietako ereslariak edo musika-zaleak poz berezi bat dauke euren biotzetan: euren zaindari daben Zezili deunaren eguna ospatzen da. Orretarako abesti bereziak gertatzen dabez, batzar egokiak egiten dabez, bazkari obea be euren artean egitea ba leiteke... AGUR'ek be emen bialtzen dautsez gogorapen batzuk, onelan eurakaz batera jai au ospatzeko gurariz.

Musika edo eres-lanak eder-lanak dira.

Margoa ta neurria alkartu ezkero margo-lan ederrak sortzen dira. Zirkiña edo eragiña aldiagaz alkartu ezkero, dantzea deritxogun eder-lana agertzen da. Zaratea ta aldia alkartu ezkero, eresa egiten dogu.

Euskaldunak eder-lanetarako zoliak izan gara, baiña batez be ereserkietarako ta dantzetarako. Jokera bi oneik, ain zuzen be, ederto alkartzen dira. Eta gure aurretikoak onetan zoliak izan ba'dira, eta guk euren izakereari eutsi bear ba' dautsagu euskal-sena galdu barik ibilteko, aurrerantzean be bide orretatik sendo ta gogotsu ekin bearko dogu.

Euskaldunen eresa batzutan pozez betekoa izaten da, esaterako dantza-eresa; beste batzutan, ostera, biotz-miñez betekoa, esaterako aberri-abestiak eta eleiz-abestiak.

Abotsezko eresa ederra da gure artean eta abots-bazkuna entzungarriak sortu doguz, baiña eres-gailluz egiten dana be ez da txarra, gure artzaiñen eres-gailluak eta errietan erabilten diranak politak dira batez be geure-geurea dogun txistua aiztu barik.

Erriaren eder-lan guztiak, edo asko beintzat, alkartu, eta Egilleari eskintzeko asmoz, Euskal-meza ederra sortu zan oraintsu, gaur eres-mintzetan edo diskoetan salgai dabillena. Eta erri maillan bertan sortu dogun eder-lanik oneneta-riko bat ez ete dogu gure ZIGOR?

Asko egin da, baiña aurrera egiteko be urratsak argi bidea erakusten dabe.

Geure Zaindariaren eguna, kristiñau lez, ospatzen dogun ezkero, eleiz abestiai buruz zer edo zer esan barik iztea ez litzake ondo.

Orain urte batzuk, laterazko izkiekaz eta geurea ez zan eresagaz abesten gendun gure eleizkizunetan.

Baiña ori ez zan Erriari laguntzeko ta Erria indartzeko bide zuzena. Ori argi ikusi ta erakutsi eban Vatikano'ko bigarren Eleiz-batzar nagusiak. Eta bear zan aldakuntzea etorri zan. Aurrerantzean gure abestiak aitzeko eran, erri-kutsuz eta Erria indartzekoak izango ziran. Gregorio'tar eresa ederra zan, baiña, geurea ez zan, erri baten gogoa agertzen eban.

Eleiz-abestietan ainbat lan egin da. Esaterako GURE AITA'ren eresa oso ederra da, ta onelan beste asko. Azken aldietan euskaldun guztientzat abesti- liburu on bat be agertu jaku. Baiña oindiño bide luzea egin bear dogu.

Eta, azkenez, zer esan erbestetik etorritako abestiak gure artean sortu daben giroari buruz?

Beste jakintza ta izakera batzuen ezaugarriak dira, baiña ludian bakarrik ez gagoz eta jakintzen alkar-kurutze egiteak geroago ta ugariagoak izango doguz.

Baiña ain indartsu datorkuzan abesti orreik bertokotu egin bear doguz. Eurai euskerazko izkia ezarri. Au egin ezik, erderea sartzeko bide izango jakuz. Egindako lan bat gogoratzeko, pozik abesten zan gure artean «GAZTETXU NAIZ» abestia «NO TENGO EDAD» abestu barik.

Gero, gaurko zirkin neurtuak kontuan arturik, geure izakerearen barru-barrutik sortzen dan eresa ta abestiak agertu bear doguz. Onelan gaurko gizadiari geure jakintzatik sortzen dan eder-lana emongo dautsagu.

Eurenak artzen ba'doguz, geureak be zor dautseguz.

Ereslarien egunean aztertu begiez ba, gure abeslari ta ereslariak euren buruak, eta gure Erriaren alde gai onetan al daben guztia egiteko asmoa artu begie. Orixe eskatzen dausku gure izakereak eta gure zaindari dogun Zezili deunak.

AGUR



Nortzuk obeto Polentzi aundia ta txistulari txikiok baiño soiñularien zaindari dan Koikille deunaren egunerako?

NERE BORDATXOTIK

(1972'gn. urteko Dagonillaren zortzian Migel Angel Astiz jaunak «La Gaceta del Norte» egunerokoan idatzi zuena euskerara biurturik):

«Zalantza ta dudarik gabe, Polentzi Gezala lezoar txistularia, Paris'en bizi dana, txistuak mundu zear izan duen ordezkaririk baliotsuena da. Alde batean eta bestean lortu dituen garaipenak garbiro adierazten dute. Artista jaio zan, artista bizitzeko, ta bere artea munduari ezaguterazteko.

Bere istori zatitxo bat kontatzearren bijoa auxe: Orain urte bi, Tunez'en, munduko instrumentu guztiak sar zitezkean sariketa bat eratu zuten. Eta, jakiña, txistua ere aietako bat aizanik, an azaldu zan gure lezoarra. Zer gertatu zan? Berak irabazi zuela lenengo zaria.

An ikusiko zenduten Tunez'ko lendakari Burguiba jauna Gezala maitekiro besarkatzen. Lenen saria eskuetara emanik, laudorio ta goralpenik beroenak izan zituen Burguiba'k ain arrigarri zeritzaion txistuarentzat.

Oraindik oraintsu, Hungria'n, Szeged'en, Tunez'koaren tankerako sariketa bat ospatu da. An bildu etzan instrumento klaserik ez, noski. Rusia'ko eskusoiñujoleen txapelduna tarteko zan, baitere. Bai biolinjotzaille bizkorrik ere! Eropa guztitik iritxi ziran artistak aruntza, bakoitza bere instrumento motarekin.

An agertu zan —nola ez— gure Polentzi, bere txistu ta danboliñarekin Ain, gauza ezerezak zeramazkiela ikusirik, an bildu ziran artistak ezin diximulatu zuten beren parretxikia; errukizko parrea, alegia. «Zer asmo ote dakarki gixarajo onek, ez errejistru ta ez ezertariko gairik duen tresna parregarri orrekin?»

—Ni lasai nengoan, zion Polentzi'k. Ondo dakit txistua, begiratu baterako, azalez, alegia, utsaren urrengoa dala, baiña baita entzuten danean bere zirrara arrigarria egiten duela ere.

Alaxe gertatu zan Szedeg'en. Gezala'ren txanda eldu zanean eta onek lanari ekin zionean, erabat amaitu ziran ango irripar errukitsuak. Arretarik bizienez entzun zan aren jarduna. Bukatu zuenean, jende guztia zutitu zan exerlekuetatik, txalo zaparradarik arrigarrienetakoa entzun zalarik.

Jostaillu parregarritzat artu zuten instrumentuak egin zuen mirari ori, Polentzi Gezala'ren trebetasunari esker. Bein da berriro, Tunez'en bezela Hungria'n, lezotarrak lortu zuen lenengo saria: txistua izan zan garaille. Juraduko jaun danak batera eman zuten iritzia: ura zala danetan onena.

Eskutik eskura erabilli zuten beste artista danak Polentzi'ren txistua. Gora, beera, saietsetara, alde guztietara begiratu; erabat miatu ta maxiatu. Ezin siñistu tresna arekin musika modu ura entzun zitekeanik. Ango kritikoak, irrati ta periodikoak esan eta idatzi zituzten Polentzi'ren gorantzak!

Gure ordezkaria artara beartua zegoelarik, an alegindu zan Euskalerria zer dan, emengo oiturak zer-nolakoak diran eta abar, ango jende ikasiari adierazten».

* * *

Atsegin biziz irakurri genduen Migel Angel Astiz adiskidearen lana. Euskeratzeak merezi duela iruditu zaigu.

Zabarrak gera geienetan euskaldunak. Euskal sena galtzen ari zaigulako-edo, gero ta gutxiago maite ditugu geronen gauzak, kanpokoak laiñoetaraiño jasotzen ditugun bitartean.

Berandutxo bederen, Polentzi Gezala'k ar ditzala gure zorion gartsuak. Txalogarri dira guretzat erri zar onen nortasuna erakutsiaz mundu zear dabiltzan euskaldun artista guztiak. Ala ibillitako batek, Iparragirre'k, ain zuzen, idatzi zituen onoko itz auek:

«Eman da zabal zazu
munduan frutua...»

BASARRI

Gurasoen Eskubideak

Aspaldian darabilguzan gaiak kezkea sortu dabe; batzuk alde, beste batzuk, jakiña, aurka. Bateron batzuk uste izan leikeen, iñoren aotik gabiltzala, baiña ori ez da egia, ta gutxiago, erakunde baten izenean. Lenago be iñoiz esan dot eta gaur barriro esango: ondo ala txarto neure buruz eta aburuz nabil, eta neri tokatzen jatan zatia gorde naian: guraso lez nere umeen etorkizunari begira.

Ikastoleri buruz idatzi nuen lana ez zan guztion guztokoa izan. Batzuk, alako gairik ez dala erabilli bear —itsu ta gor izaten jarraitu nai dabenak. Beste batzuk, «egi osoak» ez zirala be, esan eusten. Ara baiña, Arrasate'ko ikastolan jazo dana neri errazoia emoten, eta guk dakigunez ez da azkena izango, gurasoak itxartzen ez ba'dira beintzat Arrasate'ko gurasoak, erri osoa obeto esateko, esnatu diran bezela.

Nere iritziz, gurasoak gara gure umeen eziketearen jaun eta jabe; gurasoen gaiñetik ez dago ez gizarterik, ez talderik, ez estadurik. Ori orrela ikusirik, nere ustez beintzat, gu izango gara irakasleekin bat egiñik, eziketa orren erantzule bakarrak.

Zeintzuk dira gure eskubideak? Gure umeentzat ikastola edo ikastetxe egokiena aukeratzea. Geuk eratu ezkero eziketearen oiñarriak geuk jartzea. Legeak ondo betetzea (ikastoleak iraungo ba'du). Kristau girokoa ala laiko-utsaren artean geuk nai doguna aukeratuz onartzea. Zelako euskera, izkuntza laguntzailletzat erabilli bear dan, aukeratzea —ba-dakigu gaztelerea dala izkuntza ofiziala. Geuk aukeratutako irakasleekin bat egiñik, gogoz eta elburuz alkarturik, gure umeak izkuntzaz eta izkeraz euskaldun egitea.

Ba-liteke guraso batzuk euren umeentzat erlijiorik ez nai izatea; errespetagarriak dira euren iritzietan... baiña errespetu ori atxakitzat arturik ez da ikastola batzuetan erlijiorik irakasten. Gurasoak ez artegatzeko edo ixiltzeko, guzurrezko «teoloji edo pedagoji»zko lege barriekin nastatu nai dituez: «umeak adiñeko egiten diranean nai daben erlijiñoa aukeratuko dabela» esanaz; «Jaun artzea be, umeak nai dabenean izan bear ei da, bere askatasuna gordetzeko» ta abar eta abar...

Eta kaltegarriagoa oraindik, gurasoak kezkatu ez daitezan, «joan daitezala umeak opor egunetan dotriñea ikastera, auzora»; besteak jolasean dagozan artean, umeok ez dira euren gustora joango ta erlijiñoari ta irakasle barrieri gorrotoa artzeko biderik onena sortu. Bitartean, eguneroko euren irakasketetan, alkar-izketetan, siñismenaren oiturea ta oiñarriak guzurrezkotzat, ipuintzat edo «mitotzat» salatzen ba'jakez, kaltegarriago oraindik. Siñismena etxean bakarrik agertu bear jakoela esatea, maltzurkeriz jokatzea da: Gaur, umeak, gurasoekin baiño irakasleekin aldi luzeagoan izaten dira. Orrein artean ez ba'dago iritzi ta asmo bardiñik, irakasleagana makurtuaz, laister sortuko da gurasoenganako zalantza, zuloa, ikaragarrizko leiza-zuloa. Bear ba'da, guraso epelak edo itsuak izango dira min aundiena artuko dabenak, gero.

Euskereari buruz zer esango? Pedagogorik atzeratuenak be ba-daki, irakatsi bear dan izkuntza, erriak darabillena, al danik urren, izan bear dabela, lenengo mailletan beintzat; umeak etxean edo auzoan erabilliz landu al izango dauana. Baiña zoritxarreko «euskeranto»ekaz lilluratzen dira guraso erdeldun asko, olakoagaz edonun ulertuko diralakoan... Ori, jaunak, euskerarentzat kaltegarria izanik, ikastola bakoitza «gheto» baten biurtzea da, euskal girorik lortu al izaten ba'dabe, kasurik onenean.

Gaur, gurasoak eziketan parte artu bear dogu, eta arretaz begiratu gure ikastolako giroa zelakoa dan ikusteko; besteak jokoan dabiltz ba. Norberarentzat egokia ez ba'da, ez bialdu erderazkoren batera Alkartu gurasoak eta aztertu giroa. Geienak, lendik dagoana onartzen ba'dabe, ta zuretzat egokia ez izan, beste ikastola bat aukeratu ta kito... Baiña ez xinplekeriz zure umeak edonorren eskuetan itzi

Umeak erlijioan ezitzea ez da otoitz luzeak buruz irakastea, ezta azalkeri utsezko oituretan nekatzea be; kristau giroan ikastolan bizi izatea baiño. Alde onetatik, umea «utsik» iztea, satorren elburua da. Siñismenik ez dauan umeari edozelako «teoriak» sartu leuskioz buruan, gurasoak patxadaz, lozorroan dagozan artean. Egizu «test» txiki bat zeure zortzi-amar urteko umeakin, eta gorgor agertu barik, emoyozu aria ea zertaraiño nastatu daben ikusteko, ba-litzake arrituta zeu geratzea. Ba-dakit, au irakurtean, ego-pean euren burua estaldu nai leukeen batzuk asarratuko jatazala, baiña ez det ardurarik.

Arrasate'ko gertakizunak naikoa erakusgarri ta egi-emoille izan dira guretzat, eta gurasoak jakiñean ipiñi bear doguz; gero, bakoitzak jakingo du zer egin, baiña ez euskerea ikastera bialtzen dabezelakoan, betirako galtzeko zorian jarririk, «pedagogo» barrien «experientzietara»ko etxetik atera. Lenago esan gendun: «Umeekin jolasean ibilli nai dunak, artu beiz bereak jostaillutzat», edo linboan dagoan batenak, bear ba'da...

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

AU ERE BAI? INDAR BI

Or ikusten nuan eliz-sarreran Ama Euskera errosariora zetoztenai zeozer galdetzen:

—Noiz dugu errosarioa, adiskide?

—Zazpiretan asiko da, amona. Nungua zaitugu?

—Euskalerri osokua. Lagun asko biltzen al zerate errosarioan?

—Ainbestean, baiñan ez garai batean aiña ta geyenak zarrak izaten gera.

An jarraitzen zun Ama Euskerak zetozten guziak agurtzen eta danak pozik erantzuten zioten euskeraz. Sarrera jo zutenean Ama Euskera elizan sartu zan. Apaiz gazte bat pulpitora igo zan eta asi zan beti bezela erderaz: Por la señal... erdera utsean aurrera.

Altxa zan bat-batean Ama Euskera belauniko zegon tokitik eta aldarerantz abitu zan, aulki bakoitzekoei euskaldunak al ziran galdetuz. Pulpitoan errozarioa esaten ari zan apaiza, amon ura eliztarrak naspillatzen ari zala jabetu zan, ta esan zion asarre ta erderaz, utzi zezala pakean errosarioa esaten ari zan jendea.

Baiñan jaramonik egiteke, aurrera jarraitu zun bere azterketan Ama Esukerak, eta pulpitoaren aurrera eldu zanean, ala esan zion, asarre, apaizari:

—Adi zazu gauz bat. Elizan gauden guziok euskaldunak gera ta euskeraz esan nai dugu errosarioa. Ez al dakizu zerorrek euskeraz?

—A ze ateraldia! Orixe bai dakidala nik euskeraz; baiñan emen oitura ori dagota, erderaz esan oi dugu.

—Gaizki egiña seme! Euskeraz itz egin bear dugu euskaldunak beti eta batez ere Jainkoarekin.

—Bai, ori ala da; baiñan ezin asi ninteke euskeraz esaten erretorearen baimen gabe.

—Nun da erretori ori? Ez naiz ixillik geldituko; entzungo ditu bereak eta bi...

Laister azaldu zan orratik erretorea, bere billa joanik bait zan sakristaua, Ama Euskerak akar egin orduko pulpitoari.

—Zer gertatzen da gaur emen?

—Zu al zaitugu erretorea? Zer pasatzen dan diozu? Lotsatu egin bear zenuke nun eta Euskalerrian, erderaz esan aziaz errosarioa euskaldunai

—Aspaldiko oitura dugu ba, amona, erderaz esatekoa errosarioa.

—Ta ondo dagoala al derizkiozu, euskaldunei erderaz Jainkoarekin itz-egin aztea? Nungo burutik sortutako oitura duzute ori? Erderaz bakarrik aditzen al du Jainkoak?

Ez al dugu euskaldunak euskeraz Jainkoarekin itz-egiterik? Au erę ikusi bear nuan Euskalerrian...

—Baiñan amona, zu zein arrayo zera, ain ausarti erretore bati kontuak artzeko?

—Ni nor naizen? Jakin zazu ba, Erretore jauna, Euskal-Erriko Erregiña nazu; ni naiz Ama Euskera ta nere seme arteko zabarkeriak astintzera etorria nazu.

—Ama Euskera beraz! Euskeraz esan bear al dugu errosarioa?

—Galdetu egiten dezu ori? Gizon eskolatu batek jakin bear luke, nik esan gabe, gizon bakoitzak bere izkuntzan itz-egin bear diola Jainkoari, eta eliz onetan daudenak euskaldunak dira. Bidezkoa da, ba, oyentzat euskeraz esatea errosarioa, ta ez erderaz.

—Entzun dezu Jose Luis, Ama Esukerak diona ta asi esaten errosarioa euskeraz.

Pozik asko ekin zion apaiz laguntzailleak, berri-berritik euskeraz esaten errosarioa, ta nik ez dakit nundik atera zun abots sendo ura, ekin zionean esaten:

«Zorioneko gertakariak. Lendabiziko gertakaria; Euskeraren Piztuera...», jabetu zan oker esan zula: «Ai ene! Barkatu: Jesukristoren Piztuera...»

Etzuten aspaldi artan an biltzen ziran euskaldunak, arratsalde artan bezelako poz eta maitasunaz erantzun errosarioa zuzentzen ari zan apaizari; ba-zirudin «Eman iguzu» ta «Santa Mari» ayek Jainkoaren biotzeraiño eldu ta eurengana itzultzen zirala grazi ta doayez beterik. Ura zan ayen biotzetako poza

Makiña bat malko gozo ere ixuri zuten askok arratsalde artan

«Nun ote dugu Ama Euskera?»; galdetzen zuten euskaldun ayek elizatetik irten ziranean.

—Ez da ba ageri; nora jo ote du?

—Gu jabetzeke alde egin du nunbait...


—Ez digu mesede txikia egin Orrax zeiñen errex aldatu azi duan, ezetzean tink zegon gure erretorea. Lenago azaldu bear zun emen Ama Euskerak

—Gure erretorea bezela, astindu bear lituzke alkate, sekretario ta beste asko, gure seme-alabak galdu ez dezaten eskoletan guk erakutsitako euskera.

—Izan ere lotsagarria da emen gertatzen dana; ba-zirudin danen etsaya zala gure euskera. Saya gaitezen danok, Ama Euskerak bezela arpegi ematen, gure etxe ta kaleetan euskera erregin izan dedin berriro.

RAMON MURUA

EDARI TA AKEIT ETXEA



AURE

Gozari ta azkariak

Ascao, 12 - 24 90 89 Urrtz.

BILBAO

Nere bularrak lenengo aldiz
garbitu zitun aizean
azi anai bi ats-artu nitun
ta erne jatazan barnean.
Umetatikan oraintsu arte
bizi izan dira bakean,
baña urteokaz ikusten ditut
alkar garbitu naiean.

Euskera eta kristau-legea
kristau-lege ta euskera:
biak, bikoitzak, alderagaitzak
erne jatazan batera.
Anaiki aitu ziran artean
izan nuan poz sobera,
aitu-eziña sartu zanetik
bizi-eziña ostera.

Jaunak emanak ditut odola,
mintzoera ta erria,
berez, alegin barik daridan
izaera berezia.
Irurak ditut Egillearen
sortarazi-agiria,
izadiak ain eder dagerdan
Jainkoaren irudia.

Naizen guztia, daukadan dana
oiuka daukat etsian
naizta ikusi sasi-maixuak
gu iñorendu naiean.
Jaunak ezin lei gauz bat ain barru
josi gure aragian
ta gero erruki gabe irauzi
erlijio izenpian.

Jaungoikuaren izen barria
entzun orduko ibarretan,
euskerak agintzen zun aspaldi
gure mendi-tontorretan.
Mizke ta eder garatu ba'zan
izan zan geure ezurretan,
euskeraz eraginda erne zan
euskaldunen biotzetan.

Lege barria onartutzian
ez gendun baitu geurerik,
ez mintzoera, ez oitura zaar,
ez iñungo mugalderik.
Bere-artako Jainkoak ezin
eska olako gauzerik,
ez guk iñolaz galduan-saldu
geure nortasun maiterik.

Mundua irazan ondoren Jaunak
dana arkitu zun onbera,
ta lege aldagez mugatu eban
bakoitzaren jokaera.
Ez daikiogu Egilleari
eskerstatu izaera
izadiaren lenen lege au
zaintzeko beste ezpagera.

Eliza agertu zaigun lendanik
bizi-legeetan zaindari,
ta errixka asko bizirik dagoz
eskerrak bere lanari.
Ez ete dautso zor orrenbeste
Euskalerri gureari,
edo zearo uko dagio
bere jokabideari?

LAURETA

EUSKERA EZ DA GALDUKO

Ez da besterik entzuten edonun, Euskera galtzen dijoala-ta, ze nola zaitu edo eldu leiken. Nere betiko erantzunak, auek dira: Ez da egia. Euskerarik ez da galduko sekula-sekulorun. Nola leike, erantzungo du bateon batek. Nola izango da, zuk beti ta edonun beti itz egiñaz.

Euskalerriko, barrutietako errietan, geien bat, galtzen ari dala ikusten degu, naizta dauden euskaldunak burruka gogor batean iraun. Erbestetik etorri ta datoztenak nasten dute guzia Ori egi aundia dala ere bai-dakigu. Eta, zergaitik daude ikastola guziak bete-beteak? Geiago bai'legoz beteko lirazke.

Erri aundietan bateze nastuago arkitzen da Euskera, ta erri txikietan ordea, jaun ta jabe da Euskera. Egi mardul au ezin degu ukatu. Ortako ez da obeago itz egitea bezelakorik. Erri txiki oiek, itxas ertzetan daude, arraintzale artean. Zoaz Ondarrabi'ra, Pasai San Pedro edo San Juan'era. Zoaz ere Orio, Zarautz... Getari, Elantxobe, Ea, Gernika ta abarretan. Euskera da nagusi oietan. Orrek esan nai du, Euskera ez dala galduko iñolaz. Ez orixe!

Bein batean, bultzian nijoala, praille bat exeri zan nere alboan. Antz eman nion bereala euskalduna zala. Zer esanik ez, berealan alkar izketan azi giñan. Ta, berak galdetu zidan: Nungoa zera?.—Ni, Getari'koa. Beste albokoak ez zekin euskeraz eta noiz beinka itz egiten nun ere erderaz. Nere erderako izkeraz arrituta, prailleak berriro galdetu zidan: Baiñan, nola-ta olako azentu ori? Zure erderak, ez dirudi euskalduna zeranik! Nik erantzun nion: Bai, ba' leike egia izatea. Nere ogetaka urteak Venezuela'n, olako tankera ematen du, andaluzikoa ba'nitz bezela.

Gero, prailleak galdetu zidan: Ta, eskondua al zera? (Ez nitzan arritzen galdera arekin. Ortan prailleak jakin nai aundiak izaten dituzte...). Erantzun nion: Bai, ezkondua naiz. Berak berealan: Ta, zenbat ume dituzu? Nik erantzun nion: BAT bakarrik. Prailleak zearo arrituta esan zidan: Baiñan, nola leike seme bat bakarrik euskalduna izanda...? Nik berealan: Zuk baiñon bat geiago beintzat!

Esan ba'nion, esan nion... nere praille ura zearo ixildu zan, adieraziaz geiago itz egiteko gogorik ez zeukala. Eldu giñan Irun'era ta, alkarri agur egin ondoren joan giñan bakoitza bere egikizunetara. Urrengo egun batean berriro alkartu giñan bultzian. Prailleak berealan ezagutu nindun... baiñan etzan exeri nere alboan... Ez nai nunbait nerekin geiago itz egiterik...

Gertakizun polita izan nun nik. Nerekiko bein baiñon geiagotan oldozten det ta esan, euskalerriak beti praille ugari sortzen dituala, mixiotarako ta beste elizkizunerako. Bai, bear diranak dira guziak eta ala ere gutxi daudelakoan gagoz. Eta, bestekoak zergaitik ez dute nai apaiz izan, praille edo lekaime?

Emengoak elizarako ta erbestetik etortzen diranak emengo neskatillakin ezkontzeko. Zer egingo du andereiño euskaldunak, baldin emengoak ez bai diote arpegira begiratzen? Edo ta, jaramonik egiten? Gero besteak ernaiago dabiltzalako, or artzen dituzte emaztetzat ta nastu eusko gizadia. Edo ta, emenguok, mutil zar ugari, zurrut ta janaz mokari ederrik? Ortan ezin leike zaitu gure ain maite degun EUSKERA. Berau ongien zaitzeko bide bat daukagu, ezkondu ta ekarri semeak, ugaritu artaldea ta bateze ITZ EGIN EUSKERAZ. Nere ustez, biderik onena ori da. Besterik ez.

E. OZKIN

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaaren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:

JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.

Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:

Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Arrasate'ko Auzia

Zer izan da? Ona emen AGUR'era eldu zaizkigun berriak:

An irakasle ziranak zabaldu dituzten orrietan irakurri degunez, igeztik omen datorkie arazo au. Gurasoen ordezkariak Ariznabarreta jauna aukeratu zuten zuzendaritza eramateko, baiñan irakasleen gogokoa Osa jauna omen da. Batzordekoen asmoa, Ikastola bide zuzenetik eramatea da. Irakasleak diotenez, batzordekoak gogorkeriz izentatu omen zuten zuzendari ori, beren iritxieri jaramonik egin gabe.

Urrillak 23, Astelena.—Batzordekoak eta irakasleak bildu dira. Aiek aberi bertan erantzun zezatela ea onartzen zuten zuzendari izentatua ala ez. Irakasleak, ezetz. Ori entzun ondoren, ikastolako giltzak bertan uzteko eskatu zizkien.

Urrengo egunean, ez zan ikastolarik iriki, baiñan andereiñoak atean agertu ziran.

Urrillak 27, Ostirala.—Ortarako gurasoeri dei egin ondoren, Batzar-nagusi bat eratu zuten. Batzar orretan, batzordearen alde ala aurka nor zegon jakiteko botoetara jo zuten. Irakasleen orri ortan irakurri degunez, 264 autarki izan zitun bere alde batzordeak, eta 112 aurka. Batzarrean erabilli zituzten gaiak: 1.—Batzordearen agiria; 2.—Irakasleen agiria; 3.—Ariznabarreta jaunaren agiria; 4.—Auteskundea... Irakasleak diotenez ez omen ziran arazoaren oiñarriak bear bezela aztertu... baiñan or jarri deguna izan zan gurasoen azken iritxia.

Urrillak 28, Larunbata.—Gurasoak, ara ta onera, irakasle berriak billatzen: Goitik artu zuten aginduz, Astelenerako arkitzen ez ba'zituzten... ikastola itxiko zutela, zabaldu zan.

Urrillak 30, Astelena.—Ikastola, irakasle berriekin iriki dute, Ariznabarreta jaunaren zuzendaritzapean. Lengo andereiñoak «manifestazio» antzeko zerbait egin dute ikastola aurrean. Gau artan, bi batzar egiten diztuzte irakasleen lagunak: Bata Eibar'en, eta bestea Bilbo'ko karmeldarren konbentu baten. Bilbo'n batu dan taldeak, biaramonean «autobus» baten Arrasate'ra jutea erabagi du, lengo irakasleen alde «presiñoa» egitera, alegia.

Urrillak 31, Asteartea.—Arratsaldeko irurak jota, ogetamarrenbat irakasle (iru edo lau gizonezko lagun) eldu dira Arrasate'ko ikastolara; «explikazio» bat eskatzera omen datozte. Batzordekoak: «izentatu lau-bost lagun komizio bezela». Iralaskeak, ezetz, denak izan bear zutela entzule. Eztabaidan zeudela, beren lanak utzi ta 70 guraso bildu ziran ikastolan. Oiek ikustean, irakasleak atzera egin zuten. Aurrak bost eta erdietan atera ziran ikastolatik, eta gurasoak, ateak itxi ondoren beren lanetara itzuli ziran. Irakasleak erriko plazara jo zuten «Tasio» izeneko bat buru zutela, apaiza edo eleiz-gizona ote-dan, orain Bilbo'ko ikastola baten irakasle dena.

Or, orain arteko berriak zeatz emanak. Alegindu gaitezan zerbait aztertzen: Nortzuk dira ikastola bateko eziketan agindu bear dutenak? Gure iritxiz irakasleak gurasoen ordezkariak dira ta ez besterik. Naspil oietan azpijokoa ikusten degu. Irakasle batzuk alkarturik, beren keriak sar-erazi nai dituzte, eziketa «berria» mutil artuta.

Eusebio Osa jauna, Gazteiz'ko ikastola utzi egin bear izan zun erlijiorik irakatsi nai ez zulako. H zale da ta h'dun aldizkarietan idazten du. Au zan irakasleak nai zutena zuzendaritzan.

Iñork esaten ba'du zertarako agertzen ditugun arazo abek, jakin beza, irakasleak atera dituzten orrietatik artu degula emen jarri dan zati bat. Zer, ba, oiek bai eta besteak ez? Zerbait geaiago jakin nai dunak, jo beza Arrasate'ra!

«Presioa» egitera etorri ziran irakasle batzuk ezagutzen ditugu. Bilbo'ko beste irakasle batzuk ere etorri zaizkiguten, ta bat, gizonezko bat, bere ikastolako arduranak ezer jakin gabe ziur asko. Ba-dakigu, ba, orko andera zuzendariak oso jator jokatzen duala Jainkoraren eta Euskararen alde.

Baiña, erderaz duten esaera au gogoratu bearko deneri: «Urkoaren bizarrak mozten ikusten ba'dituzu...»

Eta ez aaztu iñork: Aurrak gurasoenak dira! Eta... txanponak?

AMAIUR

Abando'ko Arranoa

1865'gngo Urtarillaren 26'an, Abando'ko Bizente deunaren Eleiza-nagusiaren alboan, Antxin jatorridun bizkaitar sendi bateko senar-emazteen zortzi seme-alabetarik azkenengo umetxu bat etorren ludira. Sabino Polikarpo izenak ipiñi eutsoezen. Bere aita, Arana ta Ansotegi'tar Santiago jauna, gogoargi, bizkor, kementsu ta ekin-zale gizona zan. Nerbion ibaiaren ubasterrean etxekoak euken ontzitegi zarra, berak barriztu ta andiagotu eban. Emendik, orain dan Salve orren ondotik, eun baiño itxasontzi geiago, beladun, baillandru, ketxemarin izenekoak urten ziran.

Santiago jauna, gogamen sendoz sustraituko karlista leiñargikoa zan. Politika gaietan aurrendua ez izan arren bereziki, Abando Errepublika'ko Endore-alkate egin eben eta Gernika'ko Batzarretarako eskubidedun, gure Sabin jaio zan aldietan.

Bigarren Isabel'en lurraldeetan, tradiziozale ta antxiñakoien geldi aldia zan orduan, eta Mañe Flaquer'ek «Arcadia Foral»ko urte zoriontsuak deitu eutson. Gobernuko erantzuleen bear barik, euren antolaketak, agintari taldeak eta Zazpi-urteko Guda'ren ordaiña, ixilka ta geldiro gertatzen iñarduen karlistak. Euskalerri osoan eurak aginduten eben. Sabin'en aita, Santiago jauna, ez zan azpilan utsean ibilli, baita erreketeen izkillutza ta guda tresnak aukeratzen be.

Bere diru ugariaz, suizkillu ta gudarornigarriak atzerrian erosi ebazan, eta berbera London'era joan zan orretarako. Bilbo'ra eldu zanean, debekatutako sal-erosketan ebillela salatu eben, ta Santiago jauna erbesteratu zan, Baiona'ra. D. Carlos lendakari zala, an egoan karlisten Batzar-nagusia. Danen artean, andik, euren arazoen azken-ona ta garaipena lortzeko, lankide izan ziran.

Sendikoak Abando'n geratu ziran. Ille batzuk ondoren, D. Carlos, Auiñamendiak igaroz egoaldera etorren eta erabateko goraegitea izan zan. Bigarren anai arteko guda negargarria sartu zan gure lurralde euskaldunetan, eta Santiago jaunaren seme-alabak, amagaz batera, berakin alkartu ziran, ainbat gertaera bildurgarri guda-bideetan igaroz.

Zortzi urtekoa zan orduan Sabin mutikoa. Gudea eta etxetik urrun izatearen samin illunak tinkatu ziran errubako aurraren gogo samurrean. Donibane'tik ebiltzan karlisten arabar eta napar gudalburuak lenengo jakintzak irakatsi eutsoezan.

Sendi jainkotiar, kristautasunez beteriko giroan azi, ezi ta gizonduten etorren Sabin. Atsekabe ta zalantzadun inguruan eldu zan gaztearo betera. Geroago Orduña'ko Josulagunen ikastetxera bialdu eben aita-amak. Ikasle ona ta zintzoa, baiña osasun makala ta gaixorik, etxera joan bearrean izaten zan sarri.

Beiñola, osasunbidez etxean egoala, Koldobika bere anai nagusiak, Bizkai'ko atsekabeak, gaitzmiñak indar-bideren bat bear ebela adierazi eutson: karlisten asmoak garaituak zirala-ta, —iñotson Koldobika'k— ez ebela balio Bizkaia'ri, ez izatez, ez koindaraz, ez aldi artako ezerk... Sabin'en gogo gazte gartsuan erein eban azia, astiro-astiro erne ta sustraitu zan, euskal berbizkunde asmoak osotu arte.

Aren irakaskizuneri millakak eta millakak jarraitu eutseen. Orosko-Ibarra'ko Errotaetxe'tar Tomas'ek bein esan eustan, bere aita ta nirea izan zirala lenengoak Sabin'en alde emon ebenak. Ekintza arek gure eskualdeko politika egiturak aldatu ebazan. Ezin ukatu aren ondoren guzti orren izatea. Bizkortasun eta indar itzela izan ebala danak dakie... Baiña itxi daiguzan politika arriskodun gai oneik. Bakoitzak jakingo dau zer uste izan eta zer egin.

Goazen baiña, Sabin'en giza-irudi, gizatasun eta bere bizitza laburreko bidea ikustera. Bere anai Koldobika'k euskal arazoak gogoratu ta biotzeratu eutsozanean gazte barri ta gartsu bat zan. Bere adimenean, errizaletasun au, bere errelijiño zuzentasunagaz bateratzen zan. Olan agertzen da Barzelona'n, bere ikaskide batzuekin, Berrio-Otxoa'tar Balendin'en gorpuzkiñen ondo-etorria antolatzen...

Eredu ta jarraigarria da bere siñismenean eta jokabide garbian (jarraitseko).

LETONA

FERRETERIA UNCETA, S.A.

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak

Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14

71-10-00 Urrutz.

Apartado 18 **E I B A R**

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK

Martin Aldazabal TENDERIA, 3

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Goiz-argi'koen Billera

Pozarren benetan nereganatu dot, Azillaren 19'an, Tolosa'n, GOIZ-ARGI illeroko aldizkariak, beste Euskal-idazleekaz batera bertaratu naiten, egin daustan deikun sutsua.

Eta nola ez Tolosa aldera abiatu, euskal arloan ainbat eta ainbat gora aundiko zioak billera ontan izanaz batetik, ta biotz muiñ barrena begiratuz, baita tolosar lagun miñ bakan batzuk besarkatzeko asmoz bestetik?

Giputz Euskal-idazle yayoak, napartar eta arabatar batzuekaz bat egiñik, etorri ziñien Elgeta'ra AGUR gure aldizkariak egiñiko dei anaikorra betetzera. Eta, zelan egitan gure «orain» asteroko AGUR eta bere asmo artezak sendotu ta adoretu zenduezan, giputz-bizkaitarrak irme ta leiatsu alkartu giñon ango billera anaikor gogoangarrian! Ez da aztuteko zera; ez bein.

An —zerrenda luzeegia litzake— ezagutu nebazan gure Euskaltzaindi'ko Labayen eta Zeleta agurgarriak, an Etxaniz'tar Nemesi beti euskal-lilluramenez gazte diraun Abade fiñeneitakoa, bertan gure paregabeko Basarri olerkaria, an Bordari, Uxola, Ira..., an guztioen begi-niñietan dogun gure Sagartzatzu'tar Joseba maitea. Berak be, gure Gotzon' egaz, azkeneko urteetan Jaunaganatu diran idazle trebe errikoiak soillik aipa-bide damostela, goi-goitik Euskal-erriak bear duan laguntasun berezia lortuko daiskuelakoan nago. Gu, ez gazte ez zaar, aldiaz gure giroaren bizkartasunaz batera ba-goaz, ta pozik atan be betiraunera; bestalde gure zain dagozan euskal bikaiñ, betiko Kristau-euskaldunekaz, Jauna Lagun, bat egitera.

Bien bitartean baiña, Euskal-Erria gizaldiz-gizaldi dirau. Gazteak orrela gure euskal lorratzak, indarge ta arruntak izan arren, gaurkotuta ta indarberrituta, ori bai, jarrai beitez. Onetara gaurko ume, andereiño ta gazteak batez be izan daitezala Jaungoiko ta Euskerearen su bizia Euskal-Erriko zazpi erkietan ezezik, baita Idaho'n, Benezuela'n, Arjentina'n, Australia,n eta ludian barna idoro leiteken euskaldun bizi-leku oroetan be billera onen elburu, arnari onuratsuak edaturik, GOIZ-ARGI «amabosterokoen» barri alaitsua emon dagienak.

Onela ta ez bestalde, gure Euskal-Erri kutuna be Jaungoiko ta Euskerearen zaletasuna gorderik azken aldietaraiño, lendik be Europa zarran eredu bakarra danez, iraun leiteke. Ez daigun galdu gure euskal-nortasuna. Ori da gure itxaropen bedegarra. Gazteak, zuen zain gagoz.

Gure usteak ustelduko ete? Ez dot uste.

ARREGI'TAR JOSU

KONTU KONTARI

Zorioneko Biorra...!

Arratsaldeko bostak inguru. Oraiñ berrogeta bost urte...? Ba-leike. Arratsalde illune beintzet; negu baltza ta bustixe, eurixe, txingorra, bai mendi onduen edurre.

Estupa zikiñ baltz bat erdixen, bere gorako tubo kedarrez beteta. Keie, usaiñe, eztule... Dominístukun baten, nire nausixe, bere paper zuzentzen dabill ago peko erretolika jardunien. Neu barritz, otzak jota, dardaraz, bentana oste kanpoko oiñeztarrixori begire-begire. Andaluse bera; euskaldune, amabost urte inguruko euskaldun garbixe neu.

Igerriko zenduen, bai, opiziñan gitzela. Kartzela-etxe otzeko goiko ezkerreko alkoba baltzien. Keetan, bierreko zazoi baiño gaubela geixa irudi. Nire nausixek, D. Manolito'k, eskuok alkarraz igurtzi, agotik pumetan ba'lego lez, lurrun ke otzanak bota, ta diño:

—Niño, qué tarde «má» perra...!

Neuk, ez entzun. Oiñeztuori begire, jamonik pez. Trumoiek kartzela zarra dardara darabill. D. Manolito be dar-dar. Eurixe, txingorra, edur zeie, inpernuko diabruok solte...!

—ARRATSALDE ON...!

Trumonadian ganetik, atie zabalduez, entzun dogu.

—Arratsalde on...!, ostera be.

D. Manolito'k bere ipurdixe sillatik altzau dau, bai azkar. Zutunik eta sutute, diño:

—Arrea...! pero quien ez eze kateto...!

Kateto esat'otzen arek erriko seme edo basarriko jendiari...

—Dile que paze...!, urrengo.

—Aurrera...!

An agertzen da, nire nausixan mai parien, Teletiño, nire lagun ona. Eundik gora killo. Larogei urte inguru, baiña gizon jaikixe, gizon ederra. Txapelien ekarren euri pillue naiko lauke Iberduerok ude denporan, sikete denporan, bai.

Brus baltza lixibatute, eta guardazolan puntatik, berutz begire, irrixo osue. Ure danetik.

—Niño, que ze quite la gorra...!

—I, zer jiñok onek...?

—Txapela kentzeko, mezedez...

—Bai, kontxo, ori baiño ezp'ok!

Esan eta ekiñ, Txapel pozuori kendu burutik eta nausixan mai ganien itxi, dana batera. Paperrok plai-plai. D. Manolito'n papar alkondarie txiprixtiñdu. Lengo dominístikunek gitxi xien, gero zien gerokuek...! D. Manolito jaiki de «tente-tieso» lez. Sutute, bero-berotute, baiña baitxe ondo bustitxe arpegitxik asi ta gerriraiñok.

—Qué ze ha propuesto uzté, quiere que agarre una pulmonía...?

—I, zer jiñok onek... Gero, samatik eltze'majotzat etxok inkesa aundik eiñgo... e!

—Trankill, trankill, Teletiño...

—Oye, niño, habla en cristiano...!

A zan, neutzet beintzet, berba-burruka lorriñe. Batak euskeraz, bestiek erderaz, ta ni, amabost urte edo zozer gitxiaz, erdixen. Zer esan, zer egiñ...?

—I, Arrizabalaga, esa'ixok oni, biorra bi'otela derrigor. Entzun dok, biorra bi'juat!

—Qué dice, niño...!

—Que quiere el bior.

—Si, karajo, quiero bior...

—Pero que bior y que ocho cuarto...!

—I, zer jiñok onek, cuarto...?

—Que deje fuera el paraguas, antes que nos hunda todo...!

—Zu, Teletiño, guardazola ataizu mezedez atetik kanpora.

—Gaurdosola esa'tok. Bedonegaz burutik bera emotie be, asko etxuat palta ba...

—Tire, tire bakie. Danok aitxuko gazela uste dot. Bakie ba, mezedez.

—Ze bake ta ze oste! Au gizontxu au zekorra dok baiñe oratze ma'jotzat samatik, orraitxiño estu bijok...!

—Que dice, niño, que dice.

—Nada, nada que quiere el bior.

—Pero dale, Juana. Que ez ezo del bior...!

—Zu, zer dabizu biorra dala ta eztala!

—Ara, entz'idek. Nik, kontratuen, neure semeari zoritxarrez emon'ajotzan dana. Etxe, solo, mendi, ganadue ta abar. Baiña, BIORRA EZ. Eta berak, lotsagalduek, jabik bior ori. Kendu bi'otzet neure alaben tokamena dok-ta. Eurek, biorraz, menditxik egurre, azpigarrixe edo zerbait moldatzeko ba. Zer pentz'etozue ba, dana batek erutie, ta nire alaba koitxauok Jaun Goikue lagun...?

—Ara, ori, zeure paltaz, Teletiño. Aurretik ondo begitxu, paperra buru-ariñ ta zegixen eruen bierrien etxeko gora-berak.

—Eto ze acabó. Pero que rozario e ete...?

—Ostera be biztu'ok au, txarri madarikatu au!

—Itxixozu bakien. Ez da bedorren eskuetan biorra batai kentzie, ta bestiai emotie.

—Orduan zetako jek emen. Gure diru ondokiñok arrapatzeko ala...?

—Entzun. Etorri bixer, da neuk lagunduko'tzut Kusgaure. An erabagiko dabe zure biorran izetie, bai batana edo bestiana.

—Ondo jak, bixer arte.

—Agur.

—Oye, niño. Pero que azunto traía eze hombre...? No le entendí ni papa...!

—La yegua, la yegua, señor.

—Arrea, kostipao. Ahora zale la yegua. Arrea, kozpitao. Aaaa...txissss!

Bai, ederra atrapau'ban. Otz-ikera ederra. Teletiño'n txapelan mai-ganeko plastadan. Zortzi egun oien. Ogeta emeritziko kalentura maillan. Andik aurrera, D. Manolito'k entzun egiten'banien:

—ARRATSALDE ON...!

—Mai-pera sartze'zan. Gitxi, gitxia...

JUAN JOSE ARRIZABALAGA

ESLABA'REN AGUR ERREGIÑA

TOLOSA'KO ELIZ-NAGUSIAN

Ba-dakit, bat baiño geiagok irri-par egingo duela, izendatu dedan idazpuruari. Salbea dala-ta, auek izaten dira ekintzak: Zeiñek ez du entzun Eslaba'ren Salbea?

Orkestarekin batera, ta abestu diran bezela, esango nuke, Tolosa'n bizi diran askok eta askok ez dutela entzun. Goi mailletako abesbatzak ere entzuteko aukera izan dute.

Oitura dan bezela, Agur Erregiñ au eliz-nagusian da. Bere aunditasunez, ikuspegi ta edertasunez jantzia dirudin eliz eder eta aundi onetan. Aitortu bearra daukagu, gure Parrokia edo Eliz-nagusia oso ederra dala, esaten dutenean ainbeste erritan, arritzekoa da nola jarraitzen duan oraindikan emen, gure elizan ainbeste eresaldi on eta ainbeste eresti txalogarri.

Ainbeste urte, ainbeste gudata ainbeste gorabera izan eta berdin jarraitzen du Hilarion Eslaba'ren Agur Erregiña'k. Gizon batzuk, ez askorik, ixil-ixillik eutsi diote, ta izan ditu miraritu egun eta egun errikoi eskartsuak ere. Salbeak berriz, abestutzerako ematen digun joera beroena, Korura joatea izaten da.

Eliza ixillik, jende gutxikin, baiñan bai apalki. Eslaba'ren Salbea. Irakasle ospatsu onek, Iruña'n aztertu zituan lendabizi ikasketak. Burlada izan zan bere jaiotz erria (21-X-1807 — 23-7-1878) *Bere gurasoak, «Benitorena» deritzaion etxearen jabeak ziran. Iruña'n bioliña, biolonzeloa ta kotrabajoa ikasi zituan eta orrela jarraitu bere apaiz izatea. Etzuen gurasoak nai izan ikasketa oiek ezta tiple izaterik ere Iruña'ko katedralian. Badakigu, Eslaba didaktiko argitasun kutsua izan zuala, baiña ez zen orregaitik gutxiago musika gai guzietan. Gure gazte denboran, bere «Metodo de Solfeo»tik ikasi genduan. Ba-zitun iru opera ta eliz-kutsuan «Te Deum Laudamus», «Illeta Meza», «Aste guziako deitorak» eta «SALBE REGINA» bi... Asko ziran berak zitun eresi eratuak.*

Irakasketa bereziak aztertu zituan, eta Altuna Juan Blas'eri erakutsi. Au Durango'n jaioa ta Leleitio'n il zan 1868'gneko urtean. Organo jole ta ereslari, bere musika lanak Eslaba'ri agertu zizkion, eta au miraritu egin zan. Gernika'ko Arbola'ren eresia, diote, Altuna'k egiña izan zala.

Eslaba'ren Salbeak edertasuna agertuz, naturalidadea, burubidea, errestasun xamurra ta gar-kutsua eta leuna agertzen ditu. Orkestak, bere xeetasunez oiek denok argitzen ditu, geroago ta obeto dijoakin eresian. Abesbatza, bakartasunez asten da su ta gar. Baritonoak, bakarrean jarraitzen du bere abots beteakin: «Eia ergo advocata nostra...», gure tenor ospatsuak erantzuten dio: «et Jesum benedictum...», azkenik, bikotea osotuaz, opera antzera entzunaldi politarekin jarraitzen dute. Abesbatzak: «Oh Clemens... Oh Pia» diote indarrakin amaitzeko denok alkarrekin: «Oh Dulcis Virgo Maria...»

Pozez atera giñan elizarik. Egunak laiñotsua ta illuna jarraitzen du, urte aro onetan... Miren Donea'ren enparantzan jendetza dago, garai artan ez oi dan bezela. Baiñan gaurko Eslaba'ren Salbeak izan du neretzat benetako biotz barrungarria. Abeslari guztiok eskeñi diogu gure oroimen beroena, ainbeste ta ainbeste urtetan abeslari ta orkestan bioliñakin lagundu zuan Xeberiano de Juan'eri.

Goian bego gure Xeberiano, bere abestiekin koruko abesbatza zutik eutsi zuana.

ARREGI'TAR ESTEPAN'EK

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 38
21-15-07 urrt.
BILBAO-5

ONA
ta
RAM

EZNEAK
ZUK
ONARTZEKOAK
DITUZU

EUSKALDUNAK IPAR-AMERIKE'TAN:

Gabon eguna zan. Urrutizkiña txirrinka: «Abade esukalduna zara?»—«Bai».—«Parkatu. Ez nozu ezagutzen... Ni euskaldun neska bategaz ezkonduta nago. Gobiernuko langillea naz. Nire zeregiña: eskola gitxikoai ta ingles ez dakielako t'abar lana aurkitzen eragozpenik daukeenai lanerako bideak edegitea da... Iru gizonentzat lan politak artzeko era daukat... Ba-dakizu iñork, euskaldunen batek, lan premiñarik daukan?»—«Biar deituko dautsut. Egingo dot alegiña batoren bat aurkitzen».

Urrutizkiña artu ta asi nintzan dei batera ta dei bestera. Ostatuetara ta euskaldunekin artu-emonik eukien lagunai deitu neutsoen ainbeste lekutara. ALPERRIKOAK izan ziran nire aalegiñak. Idaho'ko estadu guztian lanik barik egoan euskaldun bat ezin izan neban aurkitu. Berreun pesetatik gora orduko irabazteko lanak itxaroten eukeezan. % zazpi langille Idaho'n lan billa ebiltzazan egun areitan. ZERGAITIK ez egoan euskaldun bat lanik barik?

a) Ipar-Amerika'ko euskaldunentzat lanean ez egotea azkena dalako. Lanik barik baiño naiago leukee euskaldunak gaixorik egon. Ameriketa'ko emakumeak argaltzen edo mee euren gorputzak zaintzen egiten dabeen beste alegiñ euskaldunak lana aurkitzen egiten dau. Ango emakumeei auxe esaten eutsoen neukan abade lagunak: «Zuek argaltzeko egiten dozuen beste aalegiñ, santu egiten ba'negi, egun bian santu izango nitzake».

b) Euskalduna aparteko langille ona, bere zeregiña arduraz betetzekoa ta lan batetik bestera aldatzea nai izaten ez dabena dalako.

Gaur San Francisco urian, Californi'an, erriko lorategi guztiak euskaldunen eskuetan dagoz. Chino arrazakoen eskuetan egon dira joandaneko eun urtetik gora San Francisko'ko baratz eta lorategiak. Orain dala urteak, euskaldunai —banaka bateri— era emon eutsoen lan orreitan asteko. Chinoak orain baztartuak izan dira. Euskaldunak geiago egin dautsee. Oso ondo ordaintzen diran lanak dira lorategi ta baratzetako lanak. San Francisko'n.

Beste arazo askotan bardiñ jazo da: etxegintzan, bidegintzan eta ur-pozu edo presak egiten esate baterako.

d) Gobernuaren legeak dirala-ta. Ipar-Amerika'ko gobernuak aukerako legeak ditu indio, español arraza ta baltzai laguntzeko ipiñiak. Iru talde oneik dira, talde lez, gitxien irabazten dabeenak. Berengo maillan indioak, urrengo español arrazako mejikano ta Puerto-Riqueñoak eta irugarren maillan, betik gorantz, baltzak.

Gobernuak kontratuan ataratzen dituzan lanetan, estadu bakoitzean zenbat euneko talde oneitarikoak egon, areinbesteri lana emoten beartzen ditu lantegiak eta kontratuak artzen dituezan konpañiak. Iru mailla orreitarikoen ganetik dagozan ezkero, euskaldunak ez dira sartzen lege orrein babespean. Legez.

Baiña lantegiak eta konpañiak «Spanish surname» edo español izenen artean zenbatutzen dituez euskaldunak. Iñor ez da konturatzen eta kontratistak pozik. Euskaldunak pozago. Ezagutu ditut ugazabak baltzik eta mejikano arrazakorik artu ez egitearren, euskaldunai zazpi egun astean, amar ordu egunean, lan emoten dautsoezanak. Bear leukeen baiño langille gitxiago artu ta ordu geiago sartuazo. Zortzi ordutik gorako lana zatia geiago ordaindu bear izaten da. Alan da guzti be, naiago dabe euskalduna birritan ordaindu, baltza, indioa edo beste bat artu baiño. Ez, euskalduna gerrian eskuak dituala egotekoa ba'litz.

Oneik onan izanik, ez da mire egitekoa, Boise'tik deitu eustan gobernuko gizonari, egun bi geroago deitu ta esan bearra: «Ezin izan dautsut euskaldunik billatu daukazuzan lan eder orreitarako».

ERREKALDE'TAR DEUNORO

MATXITXAKO VIII

IKUSLE TA EGIZTULARI BAT

Erri-jazokunak eta edestiak jakin-erazoten ba-dausku gure itxas-aldietan itxas-lapurrakaz barruka zaparrada gorriak izan zireala, Mundakatar seme gorengotariko ETXEITA'TAR JOSE MANUEL, jaunak, bere olerkietan, baita ere, erakusten emoten dausku jazokun arrigarri orrein egiztasuna.

Eta bermeotarren euren MATXINTZALARI eta itxas-lapurren arteko gudaketa amorrotuak, alkar-joketa odoltsuak egizko jazokunak zireala, «ikusle eta egiztulari» batek edestuten dausku.

Aldi aretan, obeto adituteko, XVIII eunkian, TEXEIRA'TAR PEDRO, jauna, itxas-erri onetara etorri zan, berau, jayotzaz portugaldarra zan eta edestiak diñoanez, Lutelezti jakintasunean oso aitua, gizon argi eta gogo-zeatza eukana, 1620' garren urte ingeruan, España itxas-ertzetako errietatik ibilli eta «DESCRIPCION GEOGRAFICA DE ALGUNAS PROVINCIAS DE ESPANA» deritxon idaztia idatzi eban, eta eskuz idatzitako idazti ori Madrid'eko IDAZTI-BURU NAGOSI ETXEAN edo BIBLIOTECA NACIONAL'en aurkituten da, eta beste jazokun askoren artean, aldi aretako Bermeo'ren izate eta jazoeratzaz, izugarri ta ikaragarrizko edesti arlo au diño:

«...Sorkaldeko itxas-egalean, ezkutoki lekuan, esan daiko Bermeo'rantza datorren itxas-ertzan, itxas-lapurren untzi asko gelditu eta lotuten diraz, eta erriraturik artuten dabe ura, egurra eta eurak bear daben guztia, ezetariko eragozpen barik, eta sarritan itxas-mutur edo «Cabo» ganean itxas-zaindari ikusleak daukez, eta untzi bat ikusten dabeneko itxas-lapurrok untziarengana joan eta menperatuten dabe, jazokun oneik sarri-sarri jazoten dira...»

Idazlari eta edeslari jaun onek, beintzat, jakin-erazo eta egiztuten dausku MATXINTZALARIEN tokia, baita ere agertuten dausku zer egiten eben eta zelako itxas-burruka izugarriak izaten ebezan, diñoskunez menperatu arteraiño.

Baiña beste edestilari batzuen ustez, TEXEIRA, jaunak diñoana, oker-bideratuta dagoala diñoe, gauzak «iruntzitara edo goiko-beraz» ezarriak direala, ba, Bermeo'ren izen ona eta aldi aretako ospe andia galdu-erazoten debalakoan dagoz, eta eretxi kaltekor orreik «Bermeo'ko uria itxas-lapurren abia bat ba-litz lez» edo «itxas-lapurren leza-baltz baten antzera» edestuten dabelakoan dagoz.

Benetan, bermeotarren itxas-egintza andi-andia zan, bere uri eta itxasoetatik itxas-lapurrai alde-eragin «onez edo txarrez» eta orretarako sortu ebazan MATXINTZALARI kementsu eta indartsuak, eta euroen lan txalogarria idazle orrek «biyurtu» eta «oker-bideratutea» guztiz samiña da, batez ere Edesti argitasunerako da zuzendutea, ta jazokunak egiz idaztea, orretara dei egiten dausku gure Bermeo'ren izen onak; bere ospe andiak.

Baiña ez da arritutekoa arrotz orrek idatzi daben «oker-lana», ba, aldi aretan, etorri-barri baten idaz-lana, ariñeketan egiñekoa izango zan, orrez ganera, idazle orrek ezekian gure erriko izkuntza, ezekiazan aldi aretako gure erriaren goraberak, ez zan sakondu erriaren gogoan, ezekian ezta ere, erri au, gizaldietan itxas-lapurren bildurrez negar-bidez bizi izan zala, ez eban iñoiz entzun emen jazo zirean jazokun ikaragarriak, ez eban ezagutu bermeotarren gogoa.

Onez gaiñera, aldi aretako egunak, ez ziran izango «jai-egun alayak» MATXINTZALARIAK eta itxas-lapurrak burruka gogorrean ibilliko ziran, erri guztian artegatasuna izango zan, iñok ez eukan gogorik idazle «etorri barri» bateri «bazkari eder bat emotekorik», erriaren-alde idatzi egian, ez, ez egoan oturantzarik, itxas-alde guztietatik itxas-lapurrak zirika ebiltzazan eta lo-egiteko gabarik ere ez zan, aldi aretan Bermeo'ko urian.

(J. 1., jarraituko da).

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

ARTETXE'RI ABESTIA

CANTO A J. DE ARTECHE

Abestiak, bai... olerkiak ere bai, bertsoak nola ez? Ta, makillak ere bai! Zorionez ala zoritxarrez gizon guztiak ezberdiñak dira.

Tolosa'ko Paseo-berrian, banku gorri batean exeri naiz. Udazken arrats more, bero, goxo ontan, liburu berri au irakurtzeko.

Liburu eder eta sakona benetan —xamur eta gogorra, argi ta pozgarria— ituna ere bai; gaurko arratsea bezela. Ta ala bear. Oraingo Euskalerrian, nai ba' degu ta nai ez ba'degu, ezberditasunean bizi bearrean gaude.

Emen, Paseo-berrian, zuaitz lirain, ori artean, umeak jostatzen ari dira ta pozik gaiñera. Aurrak pozik eta amak oraindik geiago! Ama izatea zer ote da!

Urrunean, Uzturre beltza; aize urdiña. Bai egiz, gizon ona zan gure Artetxe! Onegia gaurko mundu zitalarentzat. Biotzarekin bizi zan —eta biotzak il du.

Gizon guztiak bezela, bere itzalak izan arren, ala ere, azi ona utzi du, oso ona: «Beti aurrera begiratu, aurrera beti ez atzera!» «Alkartu gaitezen euskaldunak!» «Euskaldu, fededun!»

Artetxe zanaren azken itz oiek —«ni ba-noa», esaten zigun bein eta berriz, aspertu gabe— aintzakotzat artu bear ditugu: «Beti aurrera begiratu... Alkartu gaitezen Euskaldunak...»

Artetxe'ren iritxi guztiak ez dira gureak, bere denborakoa zalako. Baiñan Artetxe'ren biotz eta maitasuna, bere borondate ona, ori guztia bai gure-gurea dala, ta betikoa! Gorde dezagun, ba, gure baitan, pitxi paregabe bat bezela!

Ta, maitasunik ez ba'degu; sendimena —Fedea— baztartzen ba'degu, orduan, orduan, zertarako nai ditugu teknika —progresoa, zientzia, bizimodu ugari ta lasaia— eta jakinduria?

Bai, liburu bikaiña benetan —«Canto a Joxe»— euskeraz eta erderaz idatzia. Artikulo asko apartak dira; besteak, politak. Batzuek gogorrak.

Bostak jo dute. Nere marrazki-ikastolako neska-mutillak laister ditut etxean Goazen azkar!

Maixuak alde batetik —kontuz diru gose-egarriarekin. Gurasoak bestetik —utikan ajolagabekeria. Ta, Jainkoa DENEKIN, aurrera beti!

MATXIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

JAPON'EN ERAGIÑA

Egun bateko ardura ta erantzukizun astunak beregandik aldenduak direla adieraziaz-edo, Eisaku Sato'ren buruko illeak luzatuz dijoazen bitartean bere oiñordeko bizkor Kakuei Tanaka'k buruzagitzan daramazkin illabete guziotako indarkarik berezienak Japon'en atzerri-politika gaurkotutzeari eskeiñi dizkio. Onelaxe jokatuko zuen ziurpena ba'zegoen. Eta ala ta guziz ere, iñork ez zuen usteko ain oinkada azkar eta erabakitsuak emango zituanik.

Ortarako, agintaritza eskuratu bezain laister Mao'ren Txina zabalarekin ar-emanetan jarri ta laterri bien arteko aserrego luzeari azkena billatzeko gogo ta naia argi askorik adieraz ondoren, USA'ko leendakariarekin elkar-izketa bat eratu zuen. Dakigunez, Hawai'n zertu zan billera. Nixon'ek berak aurretik beste onenbeste begirapen ez ba'zien agertu izan ere, japondarrek aro orretatik eta zenbait baldintza betetzekin igarotzeke ez zedukaten, irrikatzen zuten askatasun eta aukerabiderik, USA'rengandik artzerik. Eta Tanaka'k, laterri aske ta indartsu bateko buruzagi bezela billeratik ateratze arren, askatasunaren salneurria ordainduko zuen itza eman bear zion Nixon'i.

Alde batetik, USA ta Japon'en arteko salerosketa eingabea berdintzeko neurriak lenbaitlen artzeko agindu zion. Edo-ta bestela, beren txanpona —yen— bein eta bider gei-baliatzeko kinkan jarriko zituen japondarrak, USA'ko azoka zabal eta samurraren ateak nolabait isteko era litzakeelarik. Bestetik, berriz, aurrerakoan bere buruaren zaindaritza leporatu bearko zuen Japon'ek, bear bada, USA berberari izkilluak erosiaz, elkarrekiko diru-gorabeeren egoera ezegokia itxuratzeko bide dalarik. Oneraiño billera orretan artutako erabakiak, agerikoak beiñik-bein.

Eta andik berealaxe, iraillaren 29'an, Txina'k eta Japon'ek bederatzi puntuko azalpen baten bitartez jakinarazten zioten ludiari beraien arteko bakea bein betirako egin eta benetako ar-emanak bereraikitzeko asmo ta erabakia, Orrezkero Asia'ren egoera aski aldatzen dala esan bearrik ez dago. Ludiko lurralderik zabaleneko bi laterri indartsuenak, gaurdaiño zituzten besteekiko lokunetatik arindurik, elkarrengana urbildu ezkero, Asia'ren buruzpidea ta gidaritza bien eskuetara nolabait zetorkean. Areago oraindik dirudien bezela USA'k artutako joerari jarraitzen ba'dio, ots ludian zear sakanabaturik dituen indar eta gudalozteak etxeratzeari.

Japon'en urren oinkadak, baldin baitez, gaiñerako asiatar laterri txikiak egoera berriaz oar-araztera zuzenduak izan dira. Thailandia, Birmania, Ego-Korea, Singapur, Filipinas eta ab. banan-bana ikusi ditu Japon'en ordezkariak. Dirudienez, onek ez du geiegizko lausengurik jasotzeko zorionik izan, eta zenbaitetako agintariek gaizki artu dutela ere zabaldu da. Formosa'k, berriz, bereala eten nai izan ditu Japon'ekiko ar-emanak, aspaldiko urteetan kide leialenetakoak ziran arren. Izan ere, agintariok geienak txinatar komunisten etsai porrokatuak direla ba-dakigu. USA'ren babes eta geriza galtzeko zorian direnean, izkilluz eskutsik aurkitzen dan Japon eta guda-indarrez potzolo dan Txina komunistaren arteko antolaketak ez dituzte nunbait batere lasaitzen. Onen atzaparretan gelditzen diren susmo txarrak egin bai ditzakete.

Geronek ez dugu uste noski Txina'ri orrelako joku gaiztoan sartzerik komeni zaionik. Eta Ipar-amerika'rekin konpondu ezkero, berriz, oraindik gutxiago. Eta bada-ezpada, Tanaka'k lenbaitlen indartu nai ditu Japon'en gudalozteak. Ortarako, gobernuak onartu duen eralkizuna sekulakoa omen da, Tojo gudazalearen agintaldia ezkeroztik Japon'ek eratu duen guda-egitamurik izugarriena alegia. Bertako ekonomilari ta ekintzaille bakezaleek berebiziko ustekabea artu omen dute, gisa onetako asmoen erabateko arerioak ziralarik. Politikuek, ordea, beste ikuspegi batez ikusten dituzte gauzak. Eta Japon'ek gaur egun Asia'n eta ludi guzian duen ekonomi ta politika-eragiñari eutsi ta sendotzeko bear ainbat guda-indarren jabe egitea bearrezkoa deritzaie. Onek ez du esan nai, besterik gabe, japondarrez bat-batean leengo gudarako griña zitala berpiztua denik.

Japon'go politikuek ziur aski USA'k utziko duen zuloa bete nai lukete Asia'n. Eta leen aipatu ditugun laterri txiki oeri beren babesa eskeiñiaz, ekonomiz ez ezik politikaz ere gero-ta geiago bereganatu. Izan ere, erri txiki ta atzeratu orien ornitzaillerik nagusiena da Japon: Birmania'k atzerrietatik egiten dituen erosketa guzien % 24 andik etxeratzen du; % 35 Thailandia'k; % 22 Formosa'k % 42 Filipinas'ek; % 18 Singapur'ek; % 26 Indonesia'k eta % 42 Egoa-Korea'k. Eta Txina komunistarekiko zenbakiez ziurtasunik ez ba'dugu ere, bere ornitzaillerik nagusienetakoa da beintzat, eta urren urteetan bost bider geituak izango omen dira elkarrekiko salerosketak. Eta epe luzeagora zer irabazi aundiak dituzke Japon'ek, txinatar komunisten bizi-mailla obetzen dan arabera, zer saldua ugari izango dien ezkero.

Ekonomi ta salerosketa alorrean, ordea, Japon'en eragiñak ez du mugarik ezagutzen. Ludi guziko azoketan ongi sartua ta sustraitua dago: Amerika, Europa komunista, Sartalde-Europa... Joan zen urtean bere txanpona % 17 inguru balioz jasoarren, bere atzerri-salmentak urritu ez baiña erruz ugarituak izan dira urte ontan. Iraillean, adibidez, 2.725 milloi dolarren balioa saldu omen du kanpora, ots, aurreko urtean baiño % 23,2 geiago, il berarekiko. Zeatzago zenbakiak agertuaz esan dezagun USA'rako salmentak % 38 igo dituela; CEE'ra egindakoak % 25 ta Inglaterra'rakoak % 53. Guzira, atzerrietatik dituen artzekoak 17 edo 20.000 milloi dolarretara iristen omen dira. Orrez gaiñera, Japon'go diru-etxe nagusiak dolarrak jaso ta jaso darrai.

Izkillugintzari ekitearekin bat ez ba'datoz, atzerri-salmentak gelditzeko neurriak artu bearra, kanpotik eta batez ere USA'tik eskatzen zaien bezela, ez dute batere begi onez ikusten japondar ekonomilari ta ekintzailleek. Gobernuko arduradunek naiko buruauste ba-dute oraingoan. Auek ezin dezakete esan, ala ere, txiro ark bezela: «etxe uts, gerra uts», geiegizko aberastasun mailla atzeman izateak ezartzen bai dizkie olako buruausteak. Eta ori ain txarra danik ezingo dugu esan.

JOLU'K



GOROSTIONDOA GOGARGARRI

Ibarra oso polita. Aren guenean gorostiondo ederra. Eta erbi zaarrak kabitxoa antxe egin. Bai izkutuan! Urtero umeak antxe azi zituan eta garia eltzen zanerako erbikumeak eiztariengandik igesi ibiltzen ziran. Ondoren, aruntzagoko mendartetik erbi gaztea agertu zitzaion. Arek erbi zaarrari galdetu:

—Aizan! Etxerik ez diñat. Ik, berriz, oso txoko bakana aukeratu den.

—Eskean al ator?

—Irerik ez diñat ukituko. Bakarrik, ementxe, aldamentxoan neretzako zulotxoa egin nai!

—Bakoitzak geronetik izatekotan, zer iardetsirik nik ez.

Eta, erbi arrotz gazteak zulotxoa antxe egin zuan, bere atzaparrak zail astintzen zituala, gaiñera.

Bi erbiak izketaldi luzeak izaten zituzten; beiñola zuten bizitza erosoaz maiz iarduten ziran. Noski! Aiek garaiak. Aiek basorik-baso zegizten ibilliak! Iñoren beldur gabe. Ikara txororik bein ere ez! Askoz obea zana: makil luze muturretik sua zerionik ez ikusten. Orain, aldiz, iñondik ere atseden txikienik ez.

Bein erbi arrotzak:

—Aizan! Gorostiondo au zertako den?

—Ori ere galdetu? Ibarguen onek gorostiondo au bezelako ederkizunik ez din.

—I beti ederrari so ibiltzen al aiz?

—Gaiñera, onek babes bikaiña egiten zigun. Ez al aiz oartu?

—Ik ire burua aspaldi-zaarretako iritziz betea den. Ez al den ikusten eiztarien ibilliak zaindu ditzagun, itzal egiten digula? Ori or ez ba'legon, guk ikusi gabe onera iñor ez unake bilduko.

—Bildurtiegia aizela esango niñake. Gorostiondo au emendik kendu? Gure etzatokiak ain erara estaltzen dizkigun ontan ori ortik erauzi? Ni bizi naizela, beintzat, ez!

* * *

Erbi arrotzak egurastaldi luzeak egiten zituan, eta bere irtenaldietan beste erbi gazte asko txito adiskide egin. Arrotzak aiei esaten:

—Ba'zenekite! Uaxe txokoaren alaia! An erbi zaarra bizi den. Nai bezela. Etsairik gabe. Eiztari kaxkar bat bera araiño ez agertzen. Akats txikia ba-din, ala ere. Ari bere burua ezin diodala aldatu. Arentzat leenagoko garai-zaarretako egunak bezelakorik ez!

Besteak:

—Zer nai den?

—Atozte zeron bizitokia an zulatzera...

Eta Gorostiondoko ibarrera ustekabean erbi-samalda ikaragarria bildu zan.

Oraingoan erbi zaarra ikaratzen asi zan. Zion:

—Auxe ere lana den! Guztiak onera etorri bear dutela!

—Eup! Etxekandere!

—Zer nai dezute?

—Zuri zorionak eman eta geron eskerona agertu. Gurekin pozik izango zerala uste degu.

—Biak batera: pozez eta ikaraz!

—Guk zainduko zaitugu! Bakarrik, eskaritxo bat egingo dizugu. Gorostiondo ori erauzi egin bear degula.

* * *

Erbi zaarrak gau artan ez zuan lorik egin. Ibarra luze agiri zan. Gorostiondoa ipurditik atera zuten, eta baztertxo ua benetan agirrezabal gertatu zan.

Erbi aiek ikusi gabe eiztaririk araa ez zala urbilduko? Bai zera! Eiztariek bai azkar erbiak non zebiltzan igerri. Sarraskirik ikusi nai ez-eta, erbi zaarra aldameneko basora ioan zan. Eta auxe godoratu zitzaion: «Zakur askok, saunka asko!»

Andik laister gorostiondoa zenekotik beste erbiek ere iges-egin zuten. Izan ere zerbaiten itzalean bizi izatea ez al da adiñon?

ETXEBERRIA'TAR P., S. I.

ARDI OTZANA

Gure artaldeeri, Urbia, Gorbea, Urbasa ta Larrinuri goialde zoragarriak uzteko garaia eldu zaie. Tontorretan otz dagi, zorigaiztoko elurra gaiñean da, lantzurdea ugaritzen diardu, ta etengabeko laiño itsaskorra beti inguruan; eta nola ardia paketsua, biguna, otzana dan, giroaren aldaketa gogorrekin bat egiteko ez da gauza.

Ikusten diranekin, gure artaldeak ugaritzen joan bear lutekela dirudiarren, urritzen dijoaz. Gure etxeko abereetan etorkizunik aundienekoa, ia ardia zan: Bere arkumeak, sakel-alai dituztenentzako, janariik gozoen biurtu dira; bere gaztaeri on-iritzia damaiete, ta salneurri zaratatsuz saltzen dira; beren illea, aurten, kiloko, iges baiño amabost pezeta garestiago saldu da; bere narrua bera ere ez da nardagarria, ta etxeko amaika zeregiñetarako jaso oi da. Ta ardi bat iltzean, naiz ta urtetsua izan, bere aragia, gozo asko biurtu leike. Itz batean: ondakiñik gabeko aberea.

Alaz ta guztiz ere, galtzeko bidean dijoa. Neguan, larre xamurrak, zelai eguzkitsuak, bordak itxas-inguruan bear ditu. Eta toki oiek, lan-olaz, mendiko ondore-jasotokiz, lubrikante-ontzi erraldoiez, errietako ondokinpilloz, zardadeak edo jotako berebillen illerri kiretsdunez, gero ta zikiñago daude. Gure artzaiak, beren artaldeeri edaten eman al izateko, lur atsegingarri billa, urtetik urtera, gero ta eragozpen geiago dauzkate. Zelai-aukerarik ezaz gaiñera, legeak, ordaindu-bear bereziak erantsi dizkie. Gure artaldetza lurjotzera onetxek daramaki.

Ardia begiko degu. Bere begi aundi itunekin, bee legor bat ere egiteko gogorik gabe. Beti bildurti, txintarik txikienean ere, izututa igeska, galbidea aukeratzen ba'dute ere, bere lagunen atzetik, zugaiz-adarretan eta burniarietako arantzetan ille-puskak utziaz, neguan dakusgu. Ama izateko daudelarik argitzen diranean, eta, beren sabelean pilpil nabaitzen duten bizitza ain samurkiro zaituaz, beren gorputz illetsua astunkiro dabilkitenean, ilbeltzean begiko degu. Ta, arkume jostaria jaio ondoren, bere errapera, etorrita, amaren oiñarriak dardaratzen dituan bere arkumetxoarekin abots lodi-biguiñekin alkar-izketan asten diranean, begiko degu. Olerki xamurrak bost ajola dien urdaillen ase-eziñak eraginda, beren umetxoak arrapatuta, etsitzen duanean ere begiko degu: bizi-legea dala bai bai-dakite, ta, berriro, ama izateko garaia eldu-zai daude, garai ori dute apentzarako egokiena-ta, alegia.

Ardiak eukitzea gure euskal-lurraldeetan antxiñako oitura da. Beren negu-tokirantz dijoaztela, gure erri batzuetan zear artaldeak igarotzean, tankera orretako abereak ikusita, bat baiño geiago begiak zabal-zabalik geratuko dira. Baiñan, alde batera utzi eziñiko tontor-deia dutenak, ardiak etxeko, lagun dituzte, ta beren zaindari dira.

Otzantasuna, gogaketa sakonen, norbere griñak menderatzearen, lagun urkoarengana maitekiro urreratu naiaren ondorena danean, onbiderik ederrenetako bat da. Eta otzantasun au ardiak, ain da esaneko, onbera, laztana, bezain garbi azaltzen duan abererik ez dago.

Gure egunerokoek zoritxarrezko egunak adierazten dizkigute: Munitx'ko Olinpiadetan giza-ilketa ankerrak, errugabeen lapurretak, erritar jatorren erailtzak, etxe ta oroigaiak eratxi naiak. Ain arduragabe ibilliaz erailtzaille biurtzen diran berebil-zuzentzailleen arrapatze-pilloak. Aurrez gertutako gogorkeri-sorta.

Ez bizitza obeagotzeak, ez jolas tokiak ugaritzeak, ez oituren askatasun geiegiak, ez digu ez pakerik, ez baretasunik, ez gure buruaren jabe izaterik ekarri. Bestela baizik, guztiok barrenean daramakigun txarkeribeazuna aundiagotu digute.

Bete-betean otso artean bizi gerala dasaidan bitartean, ardieri begira nago.

URRILLEKO «ARANZAZU»TIK,
«TXIGUA»K EUSKERAZ

ERRIETAKO BERRIAK

Rupert

Idaho'ko gure mendi itzelok, ipar eta ego aldekuok, urte osoan euren txapel zuri ori soiñetik erantzi barik ikusten ba'doguz be, orain, gona zuri luzeak jazten asita dagozela esan bear, egunetik egunera, beerago ta beerago dakarrez lotsatuta lez. Eta, orregaitik, artaldeak bera etorri dira, ibarretara, etxera. Inguruko zelaiak eta esiak beteta kusiko dozuz eta koitaduek jantziak galtzen, mendiengadik beste aldera.

Artaldeekin batera emen doguz artzaiñak be, zaar eta gazteak urietara urreratzen. Gaur, gazteagoeri azken lanak itxita, bere eskumuturra apurtuta dabelako, Pokatello'n, Oiz aldean jaiotako Martiñ ikusi dot. Udako ixillik egon bear a igarota, iztun aurkitu dot.

—Nola igaro dozu aurtengo larraldia, Martiñ?

—Ez ain ondo, zaartzen be ba'noa-ta!

—Berrogeta zortzi urtegaz, oindiño gaztea zara!

—Ez uste izan; an, sasi artean eta atxarteetan ardi galdu billa ibiltzea ez da nere sasoikoentzat, oiñ amar urte izan ba'litz bat bera be ez neban galduko!

—Asko izan ete-dira ba?

—Gura baiño geiago, dozenerdi bat galdu dot. Otsoak be ez dira geldirik egon!

—Orduan, eta beingoan, artzaintzea lagarzekotan ete-zatoz?

—Ez, ori ez. Nik ez neuke jakingo beste ezertan, eta mutil-zarra naizenetik ez daukat iñorenean geratzerik.

—Ezkondu ba'ziñan, ezkondu, baiña ez da berandu. Begira, datorren azillaren irugarren zapatuan, euren errian astelenean egiten ei-dabe, baiña emen zapatua jai. Tomas eibatarrak ekarritako gaztaiñak erre te Felisa'k jartzen dauskuezan talo, urdai, ta erreberoakin apari-meriendie daukagu onen etxean. Atoz ara, an ezagutuko dozuz ezkongai neska gure lagunak-eta. An izango dozu aukerea!

—Et, et, et, ez neri adarrik jo, etxonat neska gazterik bear, eta dirutik be enatxabin ain ondo, ta orrein bizikera ez don merkea izango.

—Ikusten dot bai, estutu zaitudala, ika esan daustazu danori-ta. Baiña aurtengo neguan ezkondu bear zaitugu. Ze demontres, zure benetako zartzaroan be begiratu bear dozu.

Alaxe, batakin eta bestiakin, gure gizonak emen ditugula barriz, neguko alkar ikuste ta jaiak ointxe ugarituko yakuz. Ia ba emengo errietatik barri asko bialtzen dautsuezan, nik ez dot asti larregirik izaten-eta.

SYLVIA'K

Berriz

Beti izan dot ezpai bat, duda bat nire barruan: «Noiz amaitzen da begitasuna edo ilusiñoa?» Itandu gazteai, elduai, zaarrai, eta guztiak ago batez auxe erantzungo dautsue: «Nik ba-dot ilusiñoa, zerbaiten ilusiñoa». Eta guztiz zaarrak be bai? Entzun zer erantzun eustan lengo egunean larogeta amabi urteko gizon batek: «Nire bizitza guztian daukat ilusiñoa, eta au ez da bein be amaitzen begiak itxi arte».

Izan be, bizitzan ilusiño bagarik bizi dana, aurretiaz ilda dagoala esan daiteke.

Ilusiño ori izan dau neska jator batek, gure artean askoren ezaguna danak, Berriz'en bizi izan ez arren be. Baiña nik eta beste askok berriztarra lez artzen dogu, eta orrexegaitik aitatzen dot emen bere izena. Neska onen bizitza oso gatxa ta gogorra izan da amar urtetik aurrera; sekulakoak egin dauz bere etxekoak azi ta zaindu eziñik. Eta bere etxekoak bakarrik ez, baita neu be aizta bat lez artu izan nau beti. Orregaitik, zorionak emon gura dautsadaz biotz-biotzez bere ilusiñoa bete daualako. Ain zuzen, Urrillaren 21'ean ezkondu da Azkoitia'n, Ermua'ko «Zukuzu» tabernako Aranbarri'tar Kati, Larrañaga'tar Alejandro'gaz. Zoriontsu bizi zaitezela zuen bizikera barri orretan!

KARMELE

Usansolo

GAZTEDIAREN BERBIZKUNDEA

Ez, ez dozue txarto irakurri. Berbizkundea diñogu, ta ez goaz atzera egiten. Usansolo'ko gaztedia ilda egon da, edo il bearrean. Ez baiña soiñeko osasunean, Jaungoikoari eskerrak, arlo onetan zer esanik ez dago, baiña bai gogoan.

Jaiak antolatzeko, beti bardiñak; Kristau-bide ikastaroan zintzo, ori bai, beste iru-lau bat, ta agur.

Lantegietako ekin bearrak bete, edo ikasleak ba'dira, arlo orreitan ba'litzake zerbait izatea, baiña Erriari buruz, euren nortasunaren saillean, ez dogu, guk beintzat, ezer ikusi. Noren errua? Batzarrak egiteko tokirik ez daukielako? Esku bat ez dautseelako iñork luzatu? Gurasoen artean, ez dabelako naiko arnasarik artu?

Dana dala, gauza bat dago garbi: ardandegirik-ardandegira, atzerik-aurrera, batik bestera, ta kito. Ez da erreza izan, ez, oztasun oneri arrakal bat aurkitzea. Jon XXIII Aita Doneari eskerrak, arrakal ori agertu zan, ta naita nekez, sartu zan lenengo ziria oztasun orretan.

«Bakotxak bere izkuntzan eskertu dagiala Zeruko Aita meza barruan», emon eban agindua, ta urte batzuk dirala, pozpozik entzun genduan gure Eleiz barrian, euskerazko meza bat. Lenengo ziria sartzea lan neketsua izan zala esan dogu, ta nork ukatuko dau ori? Ez dago begiratzea baiño.

Zebat urte, lenengo euskera-meza ori izan genduala? Ta, zer lortu da gure gaztediaren artean, ordurik ona? Kili-Kili taldetxo bat, euskerazko mezatarako abesbatz antzeko bat, baiña ez asko geiago. Ta azkenengo talde onetatik be, zenbatek iges egin?

Baiña ekiñak, beti erantzuna! Aurten Kili-Kili taldeak, irurogei aurtxotik gora daukaz, sei bat irakasle eten barik eurekaz, ta gaztediaren artetik lau talde eratu dira, berrogeita amar bat zenbatu arte, euskera ikasteko asmoz. Len esandako otzaldi a, auzitan dagoala esan geinke.

Ta, Jaungoikoaren laguntasunagaz, bier-etzien gazte oneik, Usansolo'ko orantza edo fermentoa izango dira. Alan izan daitela.

ATXUTEGI'TAR JULENE

Zeanuri

IRAKURLEEN BARRIAK:

Orain dirala egun batzuk, ba-nentorren etxerantza nire burditxo onekin eta, ara nun, «edari-etxe» batetik urten ebanen gizon gazte batek zer esan eustan: «Oraindiño lengo euskera orregaz zabiltz. Noiz asiko ete zarie, ba, danok bardiñe edo «batue» egiten? Orrelan ez dago batasunik!»

Baiña beste egun baten, Urkiola'n aurkitu giñan D. Fabian eta D. Simón anaiakaz, Ipiñaburu'koak, aldi luzean alkar ikusi barik. Eurak esan eusten: «Irakurtzen dogu AGUR, eta Zeanuri'ko barriak dakazanean poz andia artzen dogu. Jarraitu, ba, idazten.

Baita, batu giñan euren loba Elizabete ta Emiliano'kaz, eta oneik be: «Gaurko au AGUR'ean jarri bearko dogu, ba?» «Bai orixe!»

Ba, Urkiola'ko euskal-museorako baserrietako antxiñeko tresnak eroan genduzan: gorue ta orrelako batzuk.

Beste irakurle batzuk be, auxe esan dauste, ea zelan jarri neban AGUR'ean ortuari onak dagozala aurten, tomateak baltzitu egin dirala-ta. Baiña, or daukazuez Aretza'ko monjak iñoz baiño tomate geyago jasota.

Ba-dakizue, AGUR'en irakurle egin diranak, bai-egin dabela aurrerakuntza, aundie egin be, euskereagaz. Eibar'ko Isai konbetukoak be, ba-dakigu aspaldian dirala, ainbat zeanuritar, geure lagun doguz ba berton. Eskerrak eta zorionak danori, ta bialdu zuok be, barri batzuek, pozik irakurriko doguz-eta.

Azkenez, ba-dagozela Zeanuri'n, taloburdiñak eta mazkilluek. Sabin Manterola ta Alex Mendibil'enean. Talo ta morokille jan gura ba'dozuez, etorri Zeanuri'ra, ta Joseba'k egingo dautsuez.

Baserriko ogie be, gozoa ta apitse. Olabarri'ko Luisa'renean idoroko dozue.

GORBEITARRA

Arrasate

IKASTOLA

Juan zan illaren 27'an Batzar Nagusi bat izan zan ikastolako gora-bera batzuk aztertzeko asmoz, eta bertan berpiztu zan orrillean erabakitzat geratu zan arazo bat; au da, Batzordearen eta andereiño batzuen alkar-aitu eziña. Batzordeak emon zitun bere arrazoiak eta baita andereiñoak ere. Arazorik aundiena zan andereiño batzuk ez onartzea Arizanabarreta'tar Joseba'ren zuzendaritza eta andereiño eta Batzorde'aren bitarteko bezela. Orren ondoren erabagi garratza artu bear izan zan. Au dala-ta andereiño eta irakasleren bat Ikastola'tik at geratu bear zirala.

Tamala benetan danontzako, bai alde batekoentzat eta bai bestaldekoentzat. Baiña itxuraz etzegoen beste biderik ba-da zio edo motibo ona euki bear zuten Batzordekoak erabagi au artzeko. Batzordeak, beraz, eskatu zuan Batzar Orokorrari agertzeko gai onetan beren iritziak eta olan agertu zuten bazkide eta gurasoak.

Egin zan auteskundea eta ondorenak izan ziran: Euneko 71 inguru Batzordearen alde. Tamala benetan guzti au, batez ere ikusirik oraingo egoera ederra, ba-da bai-dira 500 ikasle eta 17 andereiño. Gauza tamalgarria benetan, bai, baiña ez-gara atzeratu bear geure laguntasuna eskeiñi barik Ikastolari eta itxaropen osoa izan dezagun Batzordeagan, ba-da berau osatzen duten gizonak eta emakumeak beti agertu dute euskaltzale zintzoak dirala, eta dira. Orrez gaiñera izan dezagun uste edo confiantza osoa bertako Zuzendari dan Arizna-barreta'tar Joseba'gan, gizon jakituna (L. en Filosofía y Letras) eta apala eta aurrerantzean andereiño eta irakasle jarraituko dutenekin.

Ez geiago asarrerik eta ikasi dezagun demokrazia barruan Batzar Nagusia'ren aginduak ontzat artu eta menpetasuna gorde. Gora Arrasate'ko Ikastola!

EZIN AZTU

Bai, 36 urte igaro dira arako 40 erritar eta euskaltzale gogorkeriz il zirala. Orregaitik joan zan illaren 29'an ospatu zan meza nagusia il ziran arima alde izan zan. Eleiza beterik egon zan eta an ikusi ziran ildako orrein alargun, seme-alaba, illoba eta beste senide asko eta erritar lagunak. GOIAN BEGOZ.

LIBURUAK

Idazti asko agertzen dira esukeraz egiñak, naiz eta guztiak ez izan danen gogoko. Oraintxe agertu da «Lizardi» zanaren idazlan batzukin ITZ-LAUZ izeneko liburu ederra, oso egokia orain dala 40 urte egon euskal-kutsua gogoratzeko eta gazteentzako ikasbide ederra izan daiten. Nik uste ez jakite geienak dirala gaurko gazte batzuen jokera erruduna eta liburu onein bear-izana. Liburu au eta beste olako batzuk izango duzute emengo IRE liburutegian eta eskatu or. Baita bertan aurkituko duzue TXOLINTXU liburua ipui sorta politakin, aukerakua iru urtetik 80 urte arteko umeentzat.

ERIOTZA

Jaunak dei eginda Zeruratu da Plazola'tar Pantzeske, bere 92 urte zituala. Nere atsekabe maiteena bere seme eta beste senidei, batez ere Zaitegi'tar Yokin euskal-idazle trebeari. Berau izan zan ba arako Euzko Gogoa» eratu eta zuzendu zuan aldizkariaren jabea. Baita ere bere liburu artean ezaguna dan «Bidalien Egiñak» mardul eta sakona.

UDALAITZ

Arratia

UBETXAGA

Dima'tik eta Gorbeia'tik etorriz datozan urak alkartuten diran leku aretan dagolarik, dei dagiet Beti-Bizkor eta Irrintzi'ri, arakatu eta aztertu dagien auzotegiaren izen jator-egizkoa zein dan: «Ubetxaga, Urbitzaga ala Urbiritzaga».

Gaurko onetan baiña, Ubetxaga'ri loturik natorkizue. Gereta ta Solaguren bitarteko beko zelaikadan beitegi bat eta, beitegiaren izena izki ta letra aundiz idatzita «Granja de Ubechaga». Granja jarri bearrean «Beitegia» ipiñi ba'leutsoe, erriko ta atzerrietatik etorritakoentzat «beitegia» izenez ezagutua ta deitua ziango zana, gaur egunean oso bestera joten dau kukuak: euskaldunentzat Ubetxa'ko Granjea da, eta erdeldunentzako, Granja de Ubechaga.

Ba-litzake norbaitek esatea, tentelkeriak azalduz diardudala, ta garrantzirik emon ezean, olaxe izango litzake. Oartu, konturatu gaitean baiña, zenbait eta ainbat euskal-itz eder-jatorrik jan dauskuezala erdereak, tentelkeria dirudin zabarkeriari emonak izan garalako.

Erderari toki-eskeintza ta ongi-etorri egite au, ez uste gero bart gaueko iñontza danik. Dirala eun urte ta lenagorik egiñak diran basetxeetako ateburuetan bere, euskal-gaixotasun berbera ikusi dagikegu: «Edificado por...», «Reconstruido el año...», ta abar. Edificado'ri tokia ta lekua emoteak, ezezagun eta bakan biurtu dausku, arratiar eta inguruetako askorentzat bai beintzat, «eraiki» edo «eregi» itzak, baita sustrai beretik sorturiko erroak diran itzak: «eregille, eregigai, eregitresna» a. ta abar.

Millakak dira, bidezabaletan batera ta bestera, atzera ta aurrera eraman edo eroan-ekarriak egiten diarduezan burditzar azkar ikaragarriak. Burdi onein ateetan bere, euskeraren zorigaiztoa ta makaltasuna besterik ez dogu ikusten: «Transportes Bernaola», «Acarreo de Tierras», «Canteras de Achondo» ta abarrik asko.

Ea ba, mutillak! Garaia ta ordua bere ba-da-ta, asi, bada, len baiño len, ogibideari dagokion zabalkundea euskeraz egiten, Urreizti motrikoarraren eredua jarraitzen.

LANDAJUELA'TAR A.

Basauri

ABESTIAK BAKARRIK, EZ DIRE NEIKU

Oso atsegingarriak dire gure errietan ekusten diran euskal-soiñeku eta entzuten diran abestiak, baiña orrekiñ bakarriak neiku ez dauku.

Neiku ez da, «Gu euskaldunak gara, gora gora...» abestutie, askok, ez dakie zer esaten dabien be.

Euskal errie benetan maite izateko, gure euskerea be, geitxuago maite izan bear dogu.

Euskarea galtzen ba'da, gure erriak be, daukon izena galduko dau; ez da izango «euskal erria (euskel-dunen erria)».

R. M. de Azkue'n iztegian, 292'garren orrian, auxe irakurten da: Euskaldun, Vascongado poseedor de vascuence. No es Euskaldun quien no posee el vascuence aun cuando sea de raza pura.

Premiñakue da, eta uste'ot, egunien ordu lauren opa izatea gure euskereari, ez dala beste munduko gauzie.

Alan ba, eskuak estutu ta ebatu daiogutsan lan orreri: EZIÑA, EKIÑA, EGIÑA.

Eta azkenez, olerki bat, nire erriko izan zan Felipe Arrese ta Beitia'na:

KANTU ERRIKOIAK

Euskaldun jayo nintzan
Euskalduna azi,
Euskara utzik amak
Eustan irakatsi;
Euskara maite maite
Zabiltz neugaz beti,
Euskara ill ezkero
Ez dot gura bizi.

Olerki onen idazteguna: Donostian Urriaren 29; 1881'an.

G. KEPA

adiskide, agur

Laburki ba'da be, Jose Maria Setien Gotzain barriaretzaz zerbait irakurri al izan dot. Gizon jakitun au Gotzai sagartzea dala-ta, errian egoan ustea, egiz goituta geratu da. Gauza asko esaten diranean, errez, lasto asko sartzen da jardun aldi orretan. Baita be, beste baten alde itz egiteko gogorik, beti ez da izaten. Oraingoan, laburra izan da nire begiak irakurri al izan dabena gai oni buruz.

Euskaldunen izakera bezelakoa izan da, itz gitzigaz azaldua, baiña mamin aundikoa egi ederrekoa ta itxaropen orlegizkoa. Zu, Gotzain gai ziñan Jainkoak emoniko almen ederrez ta zuk landuriko jakituri ta ontasunez. Zure erriak, Jainkoerria bai da, egi ori ikusi dau ta orren bidez Jainkoak aukeratu zaitu artzaintza on baterako.

Nire bizitza zartu ontan, nekez ezerk eta bere indarrez ikutu dautso ene barruari zure Gotzai sagaratze orduak bezela. Une aundi orrek zer euki dau? Gotzain eta abade lagunak ugari alkartasun bero ta batuan, erri ederra ta egi maitagarria. Zure Gotzaintza astuntasun aundia da, ta zama ori lepo gain artukeran, beste Gotzain asko urreratu jatzuz, euren indarrak zure zama barriaren aringarri izan dakizuzen. Egun orretako egikizun ardatza zu izan ziñan, ta aurrerantzean be, gezatasun gabeko gatz barri bizia izango al zara Gotzain alkartzeetan, bizia izan dedin artalde bakoitzean.

Irurogetabost abade be lagun izan dituzu euskal-lur guztitik etorrita erriari oparia eskeintzen. Onaren ezaugarri izango al da au. Onegaz erria poztu egin da, ta Eleiz alkartasuna bizitu. Bizitzaren indar guztiagaz garrazi egiten dau. Or, agertu da, bai, bizitzaren bizia, adorea, odola, argia. Ta ondasun guzti orrek artaldearen onerako, egiz eta gartsu, izan bediz.

Baita era ez-bardiñezko jendetza aundia be, ortxe izan dozu. Zeiak izan ziran geienak, gaur egunean be egi billa dabiltzezenak. Argia itxaroten dabe. Iturritik ura datorren bezela, egiagaz ta jakituri zuzenagaz asetu nai leuke barruko egarri guztia. Nai izate zuzena ta eskabide egokia jende erritar arek lortu nai leukeena. Aspaldidanik billa ebiltzezan ta Euskalerriko Jainkoerriari dagokion eran eldu zara artzaintzara. Ori dala-ta, Artzain Onaren inguru ainbat jende, asko, itxaropentsu, alkartu ziran.

Gotzai sagaratze ontan entzun diran berbak, egiaren aragi biurtuko al dira. Ni ori eskatzen nabil euskaldunen Jainko bakarrari. «Egia, zuzentasuna, egizko siñismena» gipuzkoar Jainkoerriaren otsein nagusiengandik entzun ditugu. Ori entzuten oituak ez gagoz. «Zuetan aundi izan nai duna, besteen serbitzari izango da». Zertan? Gotzaiñok, garbi, esan dozue.

Kristo'ren lekuko ta erriaren otsein izatea da abadetzaren mamin eta zeregin bizia. Kristo, egia, bizitzako pentsabidea, nai izatea ta arazoak argitzen ibilli zan. Lan orren bidez gizadia zuzendu nai izan eban ta zapaltzailleak barik, ongilleak nai zituan bakarrik. Gaurko arazo ontan itzaren ongilleak, edatzailleak. Itzak zabaldu dagiala, bai, argia.

Kristo, egia, elduko al da lagun bakoitzaren barrura, sendira, menpekoarengana bezela agintzaillearengana; lantegira, beargiñarengana bezela ugezabarengana. Gizarteko auziak argiak argitu bear ditu, ta txarra dan guztia erre, ta geratzen dan onaren bidez, gizartea barriztu ta gizaseme bakoitzari bizia edertu, zuzendu, osotu.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Filolojiazko jardunak

ITZEN AUKERA

Izkuntza guztietan itz mota asko erabilli oi dituzte. Batzuk beroein sustrai-sustraitik atereak; besteak, aldiz auzoko edo urrutiko izkuntzetatik artuak. Arruntak izan, itz-jakintsuak izan —«mots savants» diralakoak— guziok osatzen dute izkuntza baten iztegia. Izkuntza, mintzobide bait da, alkarren artean zerbait adierazteko tresna.

Itzak aukeratzea, ordea, arretaz artu bear dan arazoa dugu, gure esan naiak zeatz azaltzeko, baita izkuntza alik eta garbi ta txukunen erabilli dezagun ere. Eta izkuntza txiki ta argalak, euskera bezelakoak, geiago begiratu bear diote elburu orri. Orretarako sortuak dituzte Akademiak... eta gure Euskaltzaindia ere, bai naski.

Izkera guzietan, esan nai berdiñeko edo antzeko «sinonimo» deritzaienak arkituko ditugu. Zillegi ta bidezko da jator eta zeatzenari leku ematea. Ez dut esaten erdal jatorrikoak baztertu bear diranik, ezta gutxiago ere, egokienak izatean. Jarri ditzagun eredutzat FEDE eta SIÑISMEN itzak. Teologoren batek esan dezake ez dutela gauz ber-bera adierazten. Au estuegi epaitzea da; kako-makotan galtzea. Fede ta siñismen senide detigu. Latiñetik sortu ez diran izkuntzek, esate baterako, alemanak, FIDEZ-GLAUBE itzultzen dute: «Ich glaube an Gott»: Jainkoa siñisten dut... Eta orobat beste itzetan: «Glaube, Hoffnung und Liebe». Euskeraz, Siñismen, Itxaropen eta Maitasun; fede, esperantza ta karidadea esan bearrean.

BORONDATE itza dala-ta, zerbait antzeko gertatzen da. Naiz latiñetik jesana izan, oso guretzat daukagu: amets! Baiñan alemanez, «Gure Aita» otoitzean esaten duten bezela: «Dein WILLE geshehen», Euskeraz, «Egin bedi zure NAIA» edo borondatea. PEKATU itza euskerazkoa da ziurki, baiñan OBENA ta UTSEGITEA ez dira makalago, ta erabil genitzake, alemanek SCHULDE ta SUENDE; prantzesek, PECHE, FAUTE ta OFFENSE antzo.

Era berean, eztabaidan ibilliak gaituzu SOIN itzari buruz, onek ez omen du adierazten erderazko «cuerpo», atal bat baizik. Olabide'ren iritzia: «GIZA-SOIÑA» «cuerpo humano» ots, gorputz osoa da. Ez dugu ukatzen «gorputz» itza erabiltzen danik, baiña SOIÑEKO, SOIÑEAN eta beste itz aldaxkak gorputz guzirako zerbait adierazten dute. Eta SOIN ez da bakarrik gorputz-gaiña ta sorbalda. Ez!, lapurtarrez «sorbalda» itza ondo darabilki Duvoisin'ek. Eta Arbelbide'k bere «Erlisionea» liburuan, irugarrendarren abitua nola eraman bear duten erakusteko, «soinean» atxiki bear dutela, diotsa: «gau eta egun gerrian» eta kalamuzko korda batez inguratua «errainetan».

GERRI ta ERRAINAK ez dira sorbalda, baizik SOIÑA'ren beste zati batzuek. Beraz soiña gorputz osoa da ta ez atal bat bakarrik. «Zapatak soiñean eramatea» esaera ezaguna da, ta «oiñak» soiñaren zati bait dira. Nik ala uste, beiñik bein. Orregarik SOIÑA itzak gorputz itzak aiña balio dizu, edota geiago. Batetik sustrai jatorragoa dualako; eta bestetik GORPUTZ itza «Cadaver», gorputz illotzat artzen dalako sarritan.

Beste «sinonimo» anitz aipatu genitzake: DONE eta Santu; TXERREN eta deabru; TXIRO eta pobre edo LANDER; ASKETSI ta barka... Idazleak etorri-ala aukeratzeko eskubide osoa dizu. Nik joera, euskal sustraikoentzat, arruntenentzat, dut; illuntasunik sortzen ez baldin ba'dute beintzat. Argi ta garbi arturik dauzkat legetzat.

Itz-jakintsu, «mots savants» diralakotan, berriz, bestela joka bearra dago. Esate baterako: «lexikografia, metereolojia, teolojia ta abar, zentzunak eskatzen du dauden bezela artzea, naiz batzuetan itza gaizki eratua izan. Adibidez: FILOLOJIA, au ez bait da «adiskidetasunaren jakitea», «izkuntzarenganako zaletasuna» baizik. Ez gera gu, ordea, okerra zuzentzen asiko. Zenbait itz berri edo neolojismo ar ditezkela ezin ukatuzkoa da: URRUTIZKIÑA = teléfono; ARKATZ = lápiz; GELTOKI = estación. Bijoaz aurrera, ederki asmatuak eta zabaltzen ari diran ezkero; prantzes KRAIONA ta GARA esatea baiño obe ez al dira?... Irakurri berri nauzute IBILGAILLU itza «vehiculo» adierazteko. Nere ustez ez dago gaizki; nola nai txukunago

Orain bukatzeko, Arenaza'tar Josu'k, asteroko ontan bertan «Sasi-Jakintsuentzat» deritzan lana goraipatu nai dizuet. UNESCO alkarteak esan zuan zerbait gogora-arazten digu. Alegia: Itz berriak sortzeko Mr. Sauvegeot'ek ematen duan iritzia. Au da: Erbesteko izkuntzetan sortu diran itzak onartzea, iñoiz, baiñan norberaren izkuntzako itzekin osotua.

Gai au luze ta garrantziduna dugu, ta obe izango da beste egun baterako uztea; ITZ eta PITZ!

ANTONIO M.ª LABAYEN

Gaurkotu Bearra

Setien'dar Joxe Mari euskaldun eta euskaldunen gotzain barri yaunari. Urte askoz...

XXIII Yon Aita Santuak, ta arek asitako II Batikano batzarrak, Eleizea erabarritu ta gaurkotu egin bear zala, yoranez irakatsi euskuen. Dei premiazko oneri erantzunez, lurbirako jerarkiak, baita laikoak eurak be, Eleizea ta gizartea aldatzeko ta azalbarritzeko alegiñetan diardue.

Orra, igaz, iraillean, 13'tik 18'ra, Espaiñia'ko gotzaiñek eta abadeek egin ebezan bilkurak eta alkar-izketak; zarata andia atera ebenak. Eta, len baiño len, eleiz eta gizarte egiturak barriztatu bear zirala, erabaki eben: II Batikano'aren irakatsiak, egiteetara eroan bear dirala. Baiña olango asmo ederrak sortzen ziran era berean, bereala, beste aldea be, gizartean eragiera izateko indarra ba-eukana azaldu zan, eta alde orrek, gotzaiñen ta abadeen batzean egindako batzarrari, aurka egiten etsoen, eta elizaren eta gizartearen erabarritzea, arin eta lasterka egitea, ez eban gura.

Ona beste ezaugarri ta argibide bat edo beste:

Urrutikuskiñean, gotzain yaun batek, astelenetan, gaueko ordurik onenean, au da, yenderik geien ikusten ta entzuten egon oi danean, mintzaldiak egiten zituan, eta orain be egiten ditu. Eta igazko irrallean gotzaiñek eta abadeek, batera artutako erabakien aurka egon izan da. Baiña gotzain yaun orrek, beti be, ez eban ta ez dau eleizearen eta eleiz-jerarkiaren izenean andik berba egiten, urrutikuskiñekoen izenean bakarrik baiño. Eta urrutikuskiña norena dan dakigula, ezagun da orreik be, erabarritzearen aurka dagozala.

Aurtengo dagonillean, Toledo'n teoloji-astea ospatua izan da. Aste orretan itz egin eben artean, gaurko egoeraren zabaltasunerako batzuk artu gura dabezan bideak argi ta garbi gaitzetsi ebezanak be izan ziran. Eta Toledo'ko gotzain lendakari yauna bera, auxe esateraiño eldu zan: II Batikano'ko erabakiak ariñegi ta lasterregi aurrera eroateak, erriaren siñismenari ta bidezko dan egoerari azpiak yaten ari yakela; ta olan erri siñistunaren kaltetan dala.

Baiña erabarritzearen aurka dagozenetatik talde indartsuena, «Abadeen Alkartze» deituten yakon bazkuna da. Iru milla abade, gitxi gora beera, ba ei-daukaz bazkideen artean. Ta bere yokabidea, eleiz eta gizarte egituretan leenago lez yarraitzea ta egotea da, gauza andirik alda bage. Olango abadeei «eusleak» deitu oi dautsee.

«Abadeen Alkartze» orrek, aurten, Zaldu'n iru eguneko bilkura dirdiratsu ta zarata andikoa eraldu nai izan dau. Ta bilkura orretara nortasun ospetsuak egozen deituak, lurbira orotik etortzeko. Orregaitik, «Errien Arteko Bilkura» deituten eutsoen. Ta asmo andi bat auxe zan: espaiñiar gotzain eta abadeak, igazko batzarrean, batera artutako erabakiei etsi eragitea. Bilkuraegunen aurretik, egitarauak zabaldu ebezan; ta orreitan iñoenez, yaun andi ospetsuak ziran etortzekoak. Esate baterako: Wright eta Rossi ta Danielou, iru kardenalak; Graber, alemana ta Pintore, italiarra, ta Lefebvre prantzesa, irurak gotzaiñak. Eta bilkuraren amaieran, Aita Santuak bere bedeinkapena bialduko eutsela batzarkideai, yakitera emoten zan.

«Erroma'ko eskusartzea» deritxoe eurak: Dana ondo antolatuta zalako ustean, eta pozarenpozez egozela «eusleok», ona Batikano'ko Laterri-zadorlaritzatik, eskutitza eldu zala, espaiñiar gotzaiñen batzordera. Eskutitzean onako oneik adierazoten ziran: «Abadeen Alkartze» orrek ez ebala Erroma'ko on-iritzirik.—Aita Santuak ez ebala bedeinkaziñorik bialduko bilkuaren azkenean.—Batikano'ko ordezkaririk be, ez zala etorriko bilkurara. Eskutitzak ganera, bilkurarako izena emon eben gotzaiñei, barriro oldozteko mezedea eskatzen eutsen.

Eskutitz ori ez zan paperetan agertu; baiña orren ordez, «oarkizuna» zabaldu eben gotzaiñek eta yakitera danori emoten eben. Barri oneik bazterretan zabaldu ba'ziran zabaldu, yendeen arteko iritzietan eta usteetan ikaragarrizko zurrunbilloa izan zan. Eta astiro-astiro, kardenalek eta gotaiñek, ezin zirala etorri adiarazo eben. Eta iru milla ta geiago abadeetatik, milla bat besterik ez zan agertu. Gotzaiñetarik bat bere ez. Zarataz eta dirdiraz eta sugarrez asi zan batzarra, orain illun ta utsean amaieran...!

Paris'ko aldizkari entzutetsuan etorri danez, Setien yauna Gipuzkoa'ko gotzain laguntari izentatzean, irakatsi bat emon gura izan dautse Batikano'ak: Eleiza ta gizartea erabarritu egin bear dirala II Batikano'aren arauz, obeagotuz eta zuzenago ta artezago eralduz.

Atzoko egunerokoetan etorri da, aren gotzain-sagaratzearen barria, Donosti'ko Katredalean. Zorionak euskaldun eta euskaldunen gotzain barri yaunari. Zorionak eta urte askoz...!

YURRE'TAR YULEN A. K.

ZER EDO ZER

«YAUNGOIKOA BA-DA, NEUK AURKITU DOT» André Frossard.

Ointxe iru urte dirala, Paris'en, izen onegaz idazti ba argitaldu zan: «DIEU EXISTE, je L'ai rencontré». Bertan egilleak azaltzen dau, zelan bera katokilu biurtu zan, ogei urtedun zala. Gauza arrigarria ta bakana benetan!

Bere aita Fousemagne, Belfort ondoan dagon erritxoan yayo zan. Erri orretan «sinagoga» bat egoan, eta egiñ-egiñean be, Prantzia'n katoliku eleizarik ez egoan erri bakarra. Endaz yudutarra izan arren, bere sendian ez zan ziñeste azterrenik, eta gaiñera komunistak ziran.

Bere aita Prantzia'ko III Errepublikan politika arazoetan ospetsua izan zan eta bertako komunisten lenengo idazkari-orokorra. Bere aitona yudegua izan zan eta etxeko guztiak sozialista. Ziñeste arazoetan azterrenik be ez. Yaungoikoa ete zanetz be ez eben buruausterik, Yaungoikorik ez zala esateko be ardurarik ez eben artzeneta.

Bere katoliku biurtzea arrigarria izan zan. Ezertarako irakurgai, eztabaida ta uste barik «argi zartada ixiltsu ta gozatsu baten» gertatu zan. Arratsaldeko zazpirak eta amar ziran. Bere lagun bat, otoitz egiteko-edo, Paris'ko lekaime kapilla baten sartu zan. Noiz urtengo itxaroten egoan eta aspertuta, bera be eleizatxoa zelangoa zan ikusteko, etxegintza zalea zan-eta, sartu egin zan. Bost minutu geroago urten eban, eta batpatean bere burua katoliku eginda ikusi eban.

Gauza bakana benetan. Bere eretxi, biozketa ta izakerea guztiz aldatu zirala oartu eban. Ori ezin azaldu Yaungoikoaren laguntza ta grazi barik. Baten batek itandu leike: «Zer dala-ta egon da 23 urtean yazokun ori azaldu barik?» Berak diñonez, Bernanos'en itzakaz: «on-bideratuak gogaikarri diralako». Azken baten baiña, bera ziñaldari ta egi ain garrantzitsuaren ziñaldari izan dalako, berari yazo yakona edestu egin bear dabela, «YAUNGOIKOA BA-DA, neuk aurkitu dot» idazti ederrean. Yaungoikoaren bideak ezkutuak dira izan be!

Lenago be, beste sei idazti eder argitaldua da idazle au.

GAMA

AGVR

III URTEA
63 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - AZILLA - 25

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Lanerako

Lana gizonarentzat neketsua da, eta orregaitik gizonak ez dau benetan maite lana, bearrezko gauza bat lez artzen dau.

Baiña lan egin gura eta orretarako erarik ez daukan gizona neketsuago dago. Zelako samintasuna edozein gizonentzat, batez be sendi baten ardurea bere gain ba'dauka, lan barik bere burua ikustea!

Jan egin bear, jantzi egin bear, ikastexteak ordaindu bear... eta irabazterik ez! Ori bai benetako buru-austea! Lan egin bearra baiño neketsuagoa da lanik egin eziña.

Lanerako eskubidea giza-eskubideen artean garratzitsuenetariko bat da.

Lan lar egin bearra be ez da ona. Lanpetuta dagon gizona menperatuta bizi da, ez dauka azkatasunik. Baiña lan lar edo lanik ezaren artean aukeratu bear ba'gendu, lan lar izatea lenago aukeratuko geunke.

* * *

Lana da ba gure eskubide bat eta gure bizitzarako ondasun-iturria.

Baiña lanerako gertatu egin bear gara.

Au beti onelan izan da. Baiña ez beti bardin.

Antxiña semeak euren aitagandik ikasten eben lan egiten, edo gazte-gaztetatik lantegi batera joaten ziran, eta an auren maixuagandik eta lan egiñez ikasten eben lana zelan egin.

Orduan burubide edo teori gitxi bear zan. Sarri askotan goseak berak be zurtu egiten eban gizona.

Gaur, ostera, zelako alegiñak egin bear doguzan gure gazteen adimenak, umetatik asita, landuten. Orretarako burubidea ta lana bera irakatsi bear.

Eta gazteak, geienetan ez dira izaten ikaste-zaleak. Ez dabe ikusten ikaste ori bearrezkoa danik. Beste alde batetik, nekea dan lez, errez izten dabe. Zelako alegiñak egin bear izaten dabez, bai gurasoak baita irakasleak be, auren gazteai ikasi-azoten!

* * *

Baiña gaztetatik auxe buruan sartu bear dogu: guztiok gizartean toki edo leku berezi bat daukagula eta toki orretarako barruko dei bat be bai, geure jokerakaz eta geure izaereagaz batera doan dei bat.

Dei orreri zintzo ta zeatz erantzuteko izan bear dabe gure alegiñak.


Lanerako gertatu egin bear gara. Batzuk burudide utsezko lanetarako, beste batzuk esku-lanerako... bakotxak bere almenak kontuan arturik.

Eta onetan irakasleen ardurea benetan garrantzizkoa da.

Ikastoletako umerik txikienak, oiñarri-ikasketako mutikoak, edo neskatxoak, lan-ikastoletako gaztetxuak, goi-mailako ikasleak... Guztiak dira bearrezkoak eta maillaka gizadia barriztatzeko bide dira.

Gure Erriari, gure sendiai eta euskaldun bakotxari begira, arduratu gaitezan ikasleak ikasteko eta irakasleak irakasteko. Ikasleakaz eta irakasleakaz batera, esan bearrik be ez dago, gurasoak. Ez dagigun denporea alperrik galdu. Ortik etorriko da gizarte barria, ortik ludiaren gero obea.

AGVR



Asmakizunak, tramankuluak, beti biar biziko ei-gaitun ondo, baiña lanetik azkatu diranak, zaldiak eta liberatuak...

Zaitegi Jauna Gurean

Alkar ikusi barik luzaro gagozan adizkideak ikustea pozgarri izan oi yaku.

Leengo baten, uzterik gitxien nebanean, Zaitegi jauna eldu ekidan, etxera. Enekian jaun au aberrian zanik, eta poz andia artu neban, gorengoenetako olerkari ta idazle entzutetsu au, geurean ikusi izan nebanean. Poztekoa dogu, izan be, gero, ainbat urtegarrenean, barriro, euskaltzale jakitun au geure artean ikustea.

Euskerearen arloan gabizanok ba-dakigu, jaun onek, zelako bultzadea egin izan eutsan *Euzko-gogoa* bere aldizkari bikaiñaz eta itzulpen, idazti jator eta olerki ederrakaz, gure izkuntzeari, euskaltzalerik geienak erkaturik eta bildurrez-edo loak arturik egozan aldi neketsu areitan. Aldizkari mamintsu areaz euskereari egin izan eutsan eragiña argi ikusten dogu ba-pe diran idazleen lanetan.

Idazle jakintsu ta bikain ezeze, olerkari sakon be ba-dogu, Zaitegi jauna: Arkaitz bizian ederkiro landutako antzezlan bikain eta sendoak dirudie aren olerkiak. Alperreko erbatzik ez dauke. Bear ba-da, ez dabe eragiten beste olerkari biozkoi batzuen olerkiak egin daroen biotz-ikararik, baiña, beste iñorenak ez dabeen zeozer ba-dabe. Nik neuk berein bidar irakurri ta birrirakurri daroadaz onen *Goldaketan* eta *Berriz ere goldaketan*, olerki-liburu jatorrak, eta irakurriago ta atsegiñago izaten yataz.

Euskera mamintsua ta gorengo maillakoa dau itz askatuz be. Gipuzkera osotua erabilten dau: Batasunaren billa gabizanok eredu ederra dogu aren idazkerea, batzuen txoriburukeri ta alderdikeriak alde batera itxita.

Pozgarria dogu, ba, idazle jakintsu au barriro bere osasuntsu geure artean ikusi izatea. Gure izkuntzearen egoerea ikusita, lo egiteko asmuaz etxaku agertu gero, neke bagarik eta sendo lan egiteko gogoaz baiño. Bear ba-da, norbatzuentzat, mingarri daiteke jaun jakitun au gure artera agertu izana. Euren buruak diran baiño jakitunago egiten dituenak ez dabe gura izaten, ba, inguruan, euren asmuak eta lanak ziztrin geratu daitekezan benetako jakitunen gerize tarik.

Dana da-la, geure artean dogu euskera-arloan maixu aundi dogun Zaitegi jauna, ta pozarren gagoz egiazko euskerearen lantzailleak. Gure elederraren pizkundean goirengo maillakoa dogun jaun onek aurrerakada aundia eragin izan dautso euskera idatziari, ta Goikoa lagun, aurrerentzean be ez dau lan makala egingo.

Pozezko orduak igaro nituan, ba, geurean, jaun argi onegaz, euskera, olerki, eleder eta abarri buruzko autuan. Ni lez, uri zaratatsuetatik landa, baserriko bakartadean bizi danarentzat pozgarria da, izan be gero, norberarenen antzeko zaletasun eta biozkadak dituan norbaitegaz, nozik bein, baso-arteko gentza onetan, autu-alditxurik izatea.

Jainkoak bemotso, ba, osasun betea, *Tori nire edontzia*'ren egille begiko oni, aurrerantzean be euskal-arloan sendo ekiteko, olako jakitunen bearrizana iñoz baiño bearrago dogu-ta.

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN

Mikel Zarate'ri

Eup! Urteak dira Arantzazu'n ezagutu giñala; zu abadeki, ni «osagilleki»; gudaren ondorengo ekaitz eta aldi-txarrak, edo estuagoak beintzat, baretzen asi ziralarik, an bildu giñan euzkeltzale mordo bat, zar eta gazte, biolojiari jaramonik egin barik, euskeraren alde zeozer egiteko gogo biziz eta asmo onez.

Ordutik ona makiña bat eurik busti ditu gure lurralde oneik. Bai, arrezkero noizik-beingo ikustaldiak izan doguz, or eta emen. Gure betiko leloa ta barriketa gaia: euskerearen arazoak.

Euskaltzain egin ninduen ni. Zu, nik baiño euskera geiago jakin arren, abadetzaren pekatuan jausi ziñan: «Sotana» larregi ei-egoan, une aretan, Euskaltzaindian!

Bear ba'da, ez gara iritzi bardiñekoak izan beti, baiña bai geienean. «Bizkai'ko idazleak» liburu ederra argitaratu zendunean, ba-dakigu zenbat «presiño»ri bizkarra emondakoa ziñan. H'ak sartu izan ba'zenduzan, batzuen erreztasun guztiekin jabetu al izango ziñan, baiña buruz, zentzunez eta errezpetuz beterik jokatu zendun aldi aretan. Naizta «h» orregaitik kezka aundirik izan ez —azpijanari garrantzirik ez emotetik edo— h'rik erabilli ez eben bizkaitar idazleen laneri h'ak sartzeari zuzentasunik-eza deritxazun, eta ondo egin zendun.

Baiña, Mikel, gaurko giroan orduko erara jokatzeak makillea baiño ez dakar: agur diruari, agur sarieri ta agur «auspo jotzailleen» begi-onari. Euskeraren «aitonak» gogorkeriaren legeari makurtuta dagoz. Ariak eskuetan daukezan, miñez askatasun zale agertzen diran berbalapikuok, iñoiz, bestelako agintaritzara elduko ba'lira... a zelako oin-otsa atara bearko genduken margo gorri utsagaz begiko miña artzen dogunok... eta zuetariko geienak! Dana dala, ez giñake geu bere geldirik egongo ta, bear ba'da, erratza kanporantza erabilliko genduke, euskalzaletasunaren etsaiak uxatuz... Amets dagigun!

Baiña goazen barriro zure lenengo «aurrak» aztertzera: «Txiki-zaharra» eskeiñi zendun AGUR'ek eratu eban «GARITONANDIA» sarirako. Ez zendun ipar aldeko euskalkian idatzi, ta ez zendun baldintzarik bete. Epai-maikoengandik naiko argitasun artu izan dozu. Orain, «Haurgintza minetan» orregaz, Euskaltzaindiak urtero «Txomin Agirre»ren omenez emoten daben saria irabazi dozu; zorionak!

Bilbo'ko eguneroko baten, Munitibar'egaz izan dozun alkar-izketea irakurri dot. Diñozunetik ikasgai on bi atara geinkez: «Si se quiere unificar bien los dialectos, primero hay que aprender bien cada uno el suyo y luego de él partir hacia otras culturas». Eta gero diñozu: «He usado la 'h', que creo no debe ser ningún obstáculo para la lectura si el euskera es bueno». Nai ez dozula, bear ba'da, arrikada galantak bota dozuz! Poztutzen gara Euskaltzaindiak —gaurko giroan— saritutako batek olakoak esateagaz. Euskera batura joteko «lenengo bakoitzak norberaren euskalkia ondo ezagutu bear dau?» Ez ete dira «euskeranto», zale guztiak edo geienak atzekoz aurre asi?: Ikastoletako umeeri zer irakasten? Alfabetatze «kanpaina» orretan zelako euskerea landu bear ete? Azia erein baiño len ez ete dira lurrak satsez ondotzen? Erriko euskerea iltzen iztea oba dala diñoen sasi-intelektualak zer esango ete? Lenengo punto orretan, ba, zugana nator.

Bigarren puntuan diñozunez: H ori ez litzakela oztopo izango euskera garbia erabilli ezkero! Mikel, sartu dautsazue, baiña eztenkadea ez ete da zolduko? Euskera garbia orreik? Bai zera! Zenbatek daki zuk aiña euskera? Ez dot nik, zure «ume» ori, euskera ederrean egongo danaren zalantzik. Zure euskerea, naizta berrogei «h» sartu lerro bakoitzean... ederra izango da, baiña izki ori oztopo beti! Ori diñoe beintzat mundu guztiko izkuntzalariak, emengo batzuk izan ezik.

Baiña, zuk, Mikel, sari bat merezi izan dozu. H'rik sartu izan ez ba'zendu bere, bear ba'da, lortuko zendun Lafitte jauna epai-maiko zalarik. Dana dala, zeure gogoz sartu dozuz... ta probetxo on bat egin dagizuela! Jayo-barriak ikusten oituta nago, ez baiña aurgintzako miñetan dagozan emakumeak. H'a ikur bat dala esan dodalako, norbaitek —berak bere, h'ak sartzen ditu— ea bera bere marxista dalakoan ete nagon itaundu daust.

Athletic'aren margoekin nun-naiko landetan eta kale baztarretan futbolean dabiltzan mutikoak ez dira Athletic'ko ostikolariak, baiña, bai arkondaraz baita jantzi itxuraz... Emen bere, bilbotarrentzat, tarteko «h» ori ikur bat izan da, baiña inglesetik artua, ez euskeratik.

Ikurtxoa sartu dozu, zeuk jakingo dozu zergaitik, ez baiña ez-jakinean, «haur» orren gurasoekin bazkari bat eta eztabaida bat baiño geiago egiña zara-ta. Ez dozu «auspo-jotzaille» faltarik izango, baiña, nik, ez dot zure elebarri ori erosiko. Neu bere temoso itzela naiz-eta.

Beste kezka bat: Gure umeak, Begoñazpi'tik Derio'ra «batxillerra» egitera eroatekotan gagoz. Ba-dakigu zertan atarako daben «suspenso»: euskerako «ortografian» irakasle zuk jarraitzen ba' dozu beintzat... baiña zuk jarraitzea nai genduke, bear ba'da, ordurako, joan-etorria eginda, lenera etorriko zara-ta. Olantxe!

Zorionak eta besarkada bat.

ARENAZA'TAR JOSU

maite al nazu?

—Ama Euskera, atsegin izan al zaizu nere etxea?

—Bai ta ez, orra; aurreko gizaldiko etxe bizitz ederra zurea, alaba, baiñan aurreko gizaldian, etxe oetan arkitzen nuan euskal usairik ez det arkitu zurean.

—Ez duzula euskal usairik arkitu nerean? Zer ba?

—Erderaz ari ziñan zuenera eldu naizenean, ta esango nuke erderaren oiartzuna, maizago entzun oi dala zuenean euskerarena baiño...

—Bearrekoa zaigu gaur erderaz jakitea.

—Erdera maitatzea ere bai? Erdeldunekin erderaz itz egitea tira; baiñan zeon artean erderaz mintzatzea, ondo al dago alaba? Zeon artean beti euskera erabilli bear duzute ta orrela zuen aurrak euskaldun oso biurtuko dituzute.

—Ba!, euskeraz edo erderaz jardun, gu beti euskaldun.

—Oker zaude ortan, alaba... ez dituzu ikusi nik bezela, odolez euskaldun diran erri osoak, zearo erdaldun biurtuak, euren aurrekoen erruz.

—Alaz ere beti izango dira euskaldun.

—To! esaizezu ori erdaldun biurtu diran erri oiei ta bereala erantzungo dizute erderaz: «ez gera euskaldunak, aragoitarrak, edo gaztelarrak, gera», Bidasoaz onuzkoak, eta aruzkoak: «bearnesak gera».

Orra or, alaba, garrantzikoa dan edo ez euskera maitatzea; aztutzen dira, gizaldi bat edo bi igaro orduko, euskal odolekoak dirala, erdaldun biurtutako oyek.

—Guk ba poz aundiaz aitortuko dugu beti euskaldun gerala!

—Zuk ba liteke; baiñan zure seme-alabak?... Euskera maitatzen ta erabiltzen erakusten al diezu?

—Euskera preziso maitatu bear al dugu, euskal odola maitatzeko?

—Orixe bai, alaba, euskera aspaldi galdu zuten euskaldunak, errioxakoak, aragoikoak, bureba, soria ta landes aldekoak, ez dituzte euren buruak euskalduntzak jotzen ta ez dute euskal usairik maite.

—Ez ote genuke obe gaurko egunean, Bidasoa'ren aruzkoak pranzesez ta onuzkoak kastellanoz jardutea?

—Ederki, alaba: maite al nazu ori esateko? Orrela jokatuko ba'zenute, zuen Ama Euskera lurperatu'ko zenuteke betiko.

—Ori da ba: bearrak beartzen gaitu, gu baiño ugari ta indartsugo diranen izkuntza erabiltzera.

—Biotz osoaz maiteko ba'ninuzute, etziñateke orrela jokatuko, baizikan arreta osoaz sayatuko ziñateke, nere biziari eusten. Ai, garai zoragarri ura! Erregiña nintzan ni asi Pranzi'ko Asur ibaitik, eta Alpes mendietatik eta Iberia erdiraiño. Gaur, berriz, pitinka, uzten niñutenez nere seme-alabak, baztertuta arkitzen naiz, zuen Ama naizen Euskera, lurralde txiki onetan eta emendik ere bota egin nai al nazute?

—Nola jokatu, ordea, Ama Euskera?

—Maita nazazute biotz osoaz ta zure aurrai ni maitatzen erakutsi. Ortan jarri bear duzute adore bizia euskal gurasoak; bai, maita nazazute biotz osoaz ta ordun errex itsatsiko duzute maitetasun ori zuen aurren biotzetan, baita euskerazko ikastolak sortu ta oyetara zuzenduko zenituzteke zuen seme-alabak.

—Ez da errexa zuk diozun guzia egitea.

—Benetan maite dunak, ez du eziñezkorik arkitzen ta ostropo aundiñak ez diote galeraziko, maite dun ura ondo ikusi arte. Ba-dakit etsai asko dauzkadala zuen artean ere; baiñan ez etsi, maitatu nazazute biotz osoaz ta nik zirikatu gabe, zeok aleginduko zerate nere biziari eusten, gero ta bizkorrago ta ederrago azaldu nadin. Baiñan zoritxarrez, beste aldera ari zerate jokatzen nere seme-alaba asko, ta gertu ikusten zaituztet ni zapuztu ta beste izkuntza bati eltzeko... Negar dagit biotzak!

—Goibel jarri azi al zaitut Ama Euskera, nere esan toxoroakin?

—Zure esanak, nere seme-alaba askoren jokabidea gogoratu azi didate ta orregaitik ikusten nazu ain goibel, alaba.

—Barkatu, Ama, naigabetu ba'zaitut. Nik ez nuan zure eriotzarik nai, ta orain jabetzen naiz, nere ta beste askoren jokabide okerrak, zure eriotza dakarrela lenago edo berandugo. Bai gaur bertatik asiko naiz zure maitasuna nere aurren biotzetan ezartzen, ta nere lagun guziak zure maitale purrukatu biurtzen sayatuko emendik aurrera.

—Ze poza emango didazun ori egiten ba'dezu! Egizute bai, euskaldun gurasoak lan eder ori zuen etxekoetan ta berpiztu aziko nazute. Oraintxe atzita nengon, bizien artetik izkutatu bearrean izango nintzala ta ondorengoak liburutan bakarrik arkituko niñutela.

Indaberritu zazute euskaldun semealabak zuen Ama Zarra, Euskera gaxoa.

RAMON MURUA

Okerra Zuzentzen

*61'gn zenbakian, «Donosti'ko Lizeo Berrian» idazlanean, zuzendu bearreko itz oker bat azaldu zitzaigun. «Lotsagabe**ko** apaiz bat...» agertzen dan tokian, onela bear du: «Lotsagabe**ki** apaiz bat...» Onelaxe datorkigu gure idaz-zirriborroan; eta irar-akatsen bat ez ba'da, idaz-lana makiñaz jartzerakoan egiña da. «Lotsagabeki» beraz, une baten izandakoa epaitzen bait-gendun; eta ez iñoren bizibiderik. Eta esaten digutenez zintzoa da apaiz ori bere bizibidean.*

BI GURASO

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabilteaeren bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

SASKI NASKI

Sagartzazu'tar Joseba (G. B.) ez nun zoritxarrez asko ezagutzen. Bere idazlan eta ondo ezagutzen zuten adiskideen bidez, kristau, abertzale, langille, itz batean... gizon osoa agertu zait. Galera aundia izan degu beraz, baiña an Goian, beste bitarteko bat irabazi ere bai. Siñismen onek atsekabea arintzen digu, eta orixe opa diet bere emazte, seme-alaba ta sendikoai. Bijoakie nere samin-agurrik beroena.

* * *

«Aldizkari» batean, Zumaia'ko «irakurlegoaz»? ari dala onela zion:

«Aldizkari euskaldunei dagokienez 'Anaitasunak' bezala ba ditu hemen 'Zeruko Argiak' eta azkenik AGUR'ek ere irakurleak (nere iritziz LEKTOREAK politagoa litzake ezta?, baiña jarraitu dezadan) AZKENEKO HAU DOHAN (debalde) IRIXTEN ZAIO ZENBAITI».

«Zozoak beleari ipur beltz!» Neri «aldizkari» orrekin gertatua esan bearrean arkitzen naiz. Ez bai dezaket lasai irakurri *berak egiten dutena* besteai, gezurrez eranstea!

Orain bi edo iru urte, nolabait arpidetzeko orri bat («Aldizkari» orreta-ra arpidetzeko alegia) iritxi zan gure etxera, ta seme batek, nik ez nekila, bete ta bialdu zun. Alako batean iritxi zaigu ba «aldizkari» zoriontsua, eta diru jasotzea edo jasotzeko asmoa beiñepein, batean. Aren bearrik ez genula eta antxe bialdu genitun. Nere ustez onekin guzia bukatua zan, baiña bai zera!

«Aldizkaria uts gabe, amabostero, txintxo-txintxo irixten zitzaigun. Alako batean AGUR'en aurka idatzi bat irakurri eta orixe izan nun, beti egitekotan nintzana egiteko bultzada. Idatzi nien ba, gogor samar idatzi ere, baiña guztia alperrik, gaur oraindik 'Aldizkari' ori beti artzen degu». DOHAN.

Ba-dakit gaiñera, geiagok ere *era berean* artzen dutela. Orain (berak aitortua) diruz oso gaizki omen dabiltza. Laguntza eske ebilliak ditugu. Itxuraz «norbaitzun» laguntza artu dute, gaur iritxi zait beiñepein «URRIAREN 30'ekoa».

* * *

«Itz lauz» Lizardi zanaren idaztia irakurtzen ari naiz. Zoragarria benetan! Zenbat eta geiago irakurri orduan da lilluratuagoa gelditzeko oietakoa dezute. Ez uste izan gauza aunditzen ari naizenik. Irakurtzen ari naizenean sumatzen dedana ezin itzez ondo adierazi. Euskal sena dario esaera, itz, izki bakoitzetik.

Onekin betiko nere lelora noa. Lengo idazle «garbizale» arazora alegia. Lizardi ere «auetakoa» bai genun! Nere aurreko idazlanean, Arenaza jaunarekin zerbaitean bat ez netorrela nion, baiña bere «Sasi-jakintsuentzat» idatzian guztiz bat gatozela ikusi det, pozik alare! Nik adierazi nai nuna ber-bera esan du, «izkuntzalari ospatsu» M. Sauvageot jaunaren itzez gaiñera. Eztitut emen berritu bearrik, au irakurtzen dezutenak irakurria izango dezute-ta, noski. Orrela ez ba-da, ba-dakizute, 57'gn zenbakian dezute eta irakurri oso jakingarria da-ta.

Gero au dio:

«UNESCO'ko erabakiak irakurtzean, an bildu ziran goi-maillako izkuntzalari onenen iritziak ikustean, gauza bat agertzen jaku garbi: 50 urte lenango, orrenbeste madarikatzen diran Arana ta beste orduko euskeltzale argiak, jokaera berbera artu ebela euskeraren onerako».

Bejondeizula! Ia bein betiko au «argi ta garbi» gelditzen dan! Euskera gaizkatzeko (salbatzeko) au degula bidea, GARBITZEA. Erdel itzez eta batez ere «erdel kutsuz». Eztezala iñork au «racismoa» danik esan. Au GUREA gorde nai izatea da. GUREA eta ez gurearen irrimarra (karikatura; au Lizardi'ri ikasia dizuet) EUSKERA gorde bear degu, gure izaera ta gure EUZKOTASUNA gorde bear ba-ditugu. Bestela, gure Arana Goiri'ren itz auek datozkit burura: «Il Aberria zakigu!»

AMALE'K

FERRETERIA UNCETA, S.A

Landola tresnak - Galtzairu neurri zeatzekoak
Langaillu guzietarikoak - Leunketa gaiak

Ibarrekurutz kalea 14
71-10-00 Urrutz.
Apartado 18

E I B A R

GOGOETA

Gaur bertan atera ta gaur bertan artu dogu, ogi barri epel, biguna; opil gozoa txastatu al izan dogu, San Anton'go eleizan, eguerdian eta arbil garai arein artean entzuten dogun izkera bera, doiñua bera nabaitu dogu gure barrenean. Olabeaga anaiak, Iñaki anaiak eskeiñi dausku bere idaztiño barria, «GOGOETAN» olerki sorta polita.

Baiña utzi dagiogun berari, an, Don Claudio'ren ondoan, liturji zuzenketan lez, abestuten; ta nola ez, ara zatitxo au bere Lasailletar anaieri Irun'en jaurtia, Joseba deuna gai dabela:

Zu zera biotz aulen indarra.
Egizazu guria kementsu;
iñolaz ere ez dezagun galdu
besoetan dezun Jesus Aurra.

Beste bein, «norbaiteri» abestean, beste au, gaurko-gaurko au, biotzetik urtenda lez entzun daikezu:

Jauna! lapurrak nun-nai, beti,
Euskal-errian aspalditik.
Sinismena ta euskal-gogoa
lapurtu dizkigute, ziurki.

Ta, deadar ori gaur etxe guztietan, asko nai gitxi, entzuten dogu. Lapurrak nun-nai guzurrezko euskotasunakin, guzurrezko gizatasunakin, indar gaiztoen morroi!

Donostiar, koxkero onek, ba-dau itxasoarenganako begirapen ona, an izan dira bere aurreragokoak, andik ekarri ebezan jan-gai, jakintza ta azke izateko griñak, itxas-gizonak, bere odolean aurkiten ditu ta beste gauza askoren artean auxe esan:

Baztergabea bai itxasoa,
burutapen oso argia.
Itxas luze zabalari esker
degu apain gure erria...

Baiña Zarautz'tik egotzia izan zanean, Bizkai'ko burdin-oletan ikusi ebanak, langille barrien nekeak erakutsi eutsozan. «Nere txokoa» or, Bizkai'ko ibai nagusiaren alboko bizia, dakar zeatz. Itxastar euskalduna, itxasotik ez urrin baiña su, burdin, neke ta izerdiak beste ikuspen bat dagertsiela, burdin salda urtuan beste itxaso bat aurkitzen:

Ene txokoa i... nola nik abestu?
Lantegi aundi, kebide,
labe arrigarri, ke beltza usu...
Orixe det aurrez-aurre.

Ta, gizon arein bizi-bearrak, ekin, neke izerdiak beste au be esan eragingo dautsa, naizta asierako zatitxo bak bakarrik emen jarri:

Goizetik lantegi-txistu bizia
zorrozki langille deika;
arrobi-dunbots, ontzi-karraxia,
trenen burrunba, zarata.

Danori bere biotzean gaiñezka ba'da be, idaztiño onen mamin eta euskarria euskerea bera dogu; orregaitik diño; ta bere bizi guztian ez dau besterik egin, Jaunaganako eta gizasemeenganako maitasunaren ondoan, alboan, barruan eta danoren lokarri, euskerea maitatu:

Jainkoa'k bakar-bakarrik,
aita-ama tarte, egin gaitu euskaldun.
Saiatu gaitezen danok,
euskera, euskal-giro gorde dezagun.

UBITZA

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 38
21-15-07 urrt.
BILBAO-5

BIZIA, BIDEA

Irakurtzen dudaz
poesiak
eta
begiak
idigita daukadaz,
dena azaltzeko egiagaz
baña
egia poesia da
ta besterik ez.

Obeto itz lauz,
aurrean itz launa
ta
ostean deguna...
poesia.

Zergaitik triste egon,
dena gezurra
denean?
Ezetz errango dute,
ba-dela egia...
Barnean?
Ez.
Alferrik.

Lotatzeko,
lo arazoteko,
denetik urrutitzeko,
gezurra
egi bezala siñistzeko,
zatoz,
irakur egizu
poesia; izango dezu
bide,
egi,
zidor...
dena... orretarako.

Dirua ba'dezu
ta indarra,
erran trankil
nai dezuna,
siñestuko zaitue eta.

Idaztea
modan dago.
Idatzi,
baña egia.
Non ez dago ba?
Ingi asko eskribitzen dira,
naita geienak
gezurrak.
Egia
ta
gezurra
itz bi,
guzti bat.
Au da erria
au poesia.

PELLO

Abando'ko Arranoa

Erlijiodun Jainkotiarra izan zan Sabin irakaslea, Ama Birjiña'ren zalea, batez be Begoña eta Lourdes'era jo eban sarri. Bere ezkontza-eztaiondoko ibillera be araiño joan zan. Eskutitz eta idazlanetan be Jainkoari egokion jarraipidez jokatu eban: «Jaungoikoagaitik bakarrik ots-egin dau deadar onek», idatzi eban bein baten berak egindako euskalegitaraua aitatuz. Sabin'entzat auxe zan jatorrizko ikurburua: «Jaungoikoa eta Lagi-Zarra». Berak diñoanez ospetsuki, orixe zan bere politika irakaskintza. Irakurri egizue Abeletxe'k, AGUR onen 59'gn zenbakian idatzi daben lana.

Gazte gartsu Jainkotiar onek, bere anai Koldobika'gaz, Barzelona'n egiten dau ikastaroa. Angо Ikastetxe Nagusi'ra oi dabil lege-jakintza ikasteko, naizta bere barreneko ixil-deia sendagintzea izan. Amak, ordurako alargun, semeekin egoteko, etxe-mail bat erosi eban an. Ori egiten ei-eben bilbotar sendi askok, etxeko kistar oitura garbi eta onak obeto zaintzeko euren artean. Olan, mutil biok amagaz, egunero Mezea entzuten eben eta gogojardunak egin garizuman, eta katoliko izatea bete.

Ikas-urte orreitan, Ikastetxe Nagusi'an egoan Prat de la Riba'ren izkuntz eta erri zaletasunak indar eta gogakizun andiagoak emongo etsozan Sabin'en asmoari. Baiña, gogartu zan Sabin, ez ekiala euskerarik. Utsune itzal eta izugarria bere irakazkintza lanetan. Euskalerrian dagon ondasunik ederrena berak euki ez?... Euskerea, jatorrizko izkuntzea? Berak bear daben aga indartsuena... zelan egon eta bizi euskerea ondo-ondo jakin barik...

Erosten ditu billatzen dauzan elizti, izkera-gai, iztegi guztiak, eta bere burua jartzen dau sugarrez, auzardiz eta kementsu munduan dan izkuntzarik ederrena ikastera. Lau-bost urte ondoren, ba-daki euskerea, askok eta askok baiño obeto. Bere lan, ardura, arazo, billaketa azterkariak biziagotuten dauz. Eta eriotzararte jarraituko dauan zerrendea: idazlan, izparringi, aldizkari, etimoloji-itzsorketa, elizti, ikas-liburu, toki-izen, egutegi, deun-izendegi, olerki eta eresi-doiñu lanak, asten dauz.

1888'gnean, ogeta iru urtegaz, Bilbo'ko Ikastetxerako euskal-irakasle agiria lortzeko alegiñak dagiz. Ez dautsoe emoten agiririk, ezta Unamono'ri be orretara alegindu arren, eta Sabin'en antzera, euskal-zale sutsua ta foru-zalea orduan izan arren. Gernika ta Nabarniz'ko mendietan ikusiko dogu ondoren Sabin gazte ikasia, bere txakurrakaz basurde eiztari, ainbeste gogo-lanez nekaturik, oldozteko eta alaitzeko asmoan, baita ango baserrietan bere euskera ikasi barria indartzen be.

Andik laster, politika arriskutsu arazoetan ikusiko dogu. Ogeta bost urtekin «La Abeja» aldizkarian lau idazlan argitaltzen ditu: «Erriaren lau egite goragarriak», Arrigorriaga, Gordexola, Otxandiano ta Mungi'ko gudaketak. Sabin'en idazlanak arrimen-kikildurak sort-araziten dautsee batzuei, baiña argitalpenaren albistea laster zabaltzen da, ta erria aldezko agertzen jako. Lau idazlanok liburu baten pillotzen dabez. Liburu orrek daroan aitormenen jakin-guraz dira danak Bilbo'n. Karlista zarren eta barrien artean, eztabaida ta asarre andiak sortzen dauz. Euskalduntasuna modazko arazo biurtzen da, ta Labayru, Kanpion, Novia Salcedo ta beste idazlari ugarik ots-zarata egiten dabe. Baiña Sabin guztien artean negusi.

Euskalduntasunaren aurka egozanak be ba-ziran. Ori baserrikeri utsa, jauntxokeria, karlisten saminkeria, bilbotarren besteenganako ikusi-eziña zala salatu be. Olan, gorrotor edo tarteko sakona beintzat, talde bien artean sortu bear.

Sabin, 1893'gneko Bagillean, ogei lagunekaz Begoña'n, azkari bat egiteko alkartu zan. Janariaren ostean erriarentzako bere agerkai-deia berbaldi samurgarrian azaltzen dautse. Larrazabal baserri aretan jankide ziran karlista foru-zaleak arrituta, zorabiatuta lez geratu ziran. Baiña, Sabin'ek, bere anai Koldobika'ren laguntzagaz asi eban bidean sendoro jarraitzen dau. Egun batzuk geroago, asteroko bat «Bizkaitarra» irargiten dau. Berberak idatzi ia guztia, bere ikazkintza barria, euskaldunen betikoa, agertuz, filosofi, filoloji ta edesti-politikea, aldikatuz beste idazlan batzuekaz.

Aldizkariak abegi ona dau, ta Sabin'en gogamenak be bai. Ibillaldien ibillaldiz, errietan zabaltzen dau bere asmoa. Euskalerri osoan dabil, eta urrengo urtean, Naparrak jagiko dira, asmoren bat foru-aurka datorrelako: «Gamazada» deritxen jagitze ospetsua izan zan: Bakea ta Foruak», deadarka.

Batasunaren ziñaltzaz, Kastexon'go agerkun andira, or doaz Sabin eta bere anaia.

(Jarraitzeko)

LETONA

KONTU KONTARI

Ospitxeleko Pedrotxu

Kataliñ Traputx, Jun Batis, Txiñpas... eta abar, urte asko die jun ziena beste laiño-moltzo ganeko mundure. Bai urte mordo galanta, Ospitxeleko Pedrutxu'k be alde' bana emengo mundutik.

Ume koxkorrak gitzen, Pedrotxu ikusten gendunien kale-kale, bere otzara zarraz, ospitxeleko errekaduek egiten. Denekin lagun; bere ezpanetan irri-barre poza beti. Umiei berba, zarrei bebai. A zan gizon zintzue. Gizon aundixe soiñ neurriz, baiña ume biotza. Auxe zan Pedrotxu gurie.

Koñpitxerue, bere opizio denporan, eta ba-leike arek berak eitxe'bazen pastel gozoen dultzurie bere bizi guztireko inketie bere izete moduen.

Iñoz entzu'ot Pedrotxu sasoz ezkondu zala. Neuk, beti alargun ezautu arren. Ezkondu zanien ba, jakiñe, «dia de kanpora» jutie ize'ben.

An doiez ba, erbestien, Pedrotxu ta bere andra gastie, trenien dranba-dranba, aldapan gora. Kanporutz begire, zelai ederrak, arbolari ikusgarrixek, erreka urtsuek, zeru garbixe... ikusixez, poz-pozik. Begixek zabal-zabal, aguok barrez-barrez, eskuok egazkagatu barik, gauza barrixok ezagutuez.

Alako baten, zelai aundi baten ikusten dau Pedrotxu'k ardi-aldra aundi eder bat. Andriek erreparau bez, eta Pedrotxu'k esan nai ba a ardi-aldra ederra merezi'bala ikustie...

Aldamenera begitxu, ta danak ez ezagunek. Erdaldunek barritz... eta Pedro'k erdera sobre aundik ez... Baiña erderaz esan bier alako jente modue aurrez dala... Trena aurrera, ardi-aldrie gerua ta urriña!...

Pedro berotu de, ta diño garrasi baten, tren-motorran zaparradien ganetik:
—Pantxike!... Pantxike!... Mira, mira... cuantas PULGAS!...

JUAN JOXE ARRIZABALAGA, «MARKIÑA»

Txirripiztadak

H **bat aurkitu neban, aurtomin. Mutua dalako bidekatu zan, aurki. Ba-dakit norena dan eta ondo jabongo dot, erea dodanean jabeari biurtzeko,** urkuluok **gogoko ditu-ta.**

* * *

Banaketa polita!

«Gaztedi, **euzkotarrentzat; eta,** Gazteria, **euskaldunontzat».**

(Igarriko zenduan, irakurle, zeintzuk diran euzkotarrak).

Eta, i ta ni lez, euskotar eta euskaldun batera gareanontzat, adiskide?

Kontuz!

* * *

Aspaldiko partez agertu yaku Egan **be.**

Iru ego baiño ez daukazanezkero h**-en zameak (kargeak) irauli izan eukeala uste neban baiña, orekan dago: Ondo zaintzen dau, kilinkona, alde bietara.**

Zorionak!

* * *

Ukronianuak **agertu ei-dira, or, nunbait. Euri-garoa zanean, Aizkorri-mendian, agertu oi ziran praka-gorrien antzekoak ete?**

Utikan, urgaraunok!

* * *

Ez, adiskide, etxagok mal-gizonik.

Prailletzako edo abadetzako ibilli ta egiten etziranai, bai, esaten geuntzen mal-praille **ta** mal-abade. **Baiña etzoazan areik praille ez abade txarrak. Orain bai ba-dezak, bazterretan, benetako** mal-praille **ta** mal-abadeak, **zoritxarrez.**

Praille-abade gogaituak!

* * *

Asko arritzen naz Muxika'ko Urretxindorra **zana, Giputz batek, goresteaz.**

Gipuzkoa'n asi ta aruzko bertsulari ta bertsularitzako guztiak aizatzen, urteetan, diarduenak ez dakie, antza, Bizkai'an bertsularirik zatekeanik bere.

Enbeita oleskaria leen eta oraingo bertsularien buru genduanaren barri ez dauanak, ez daki gauzon andirik gure pizkundeari buruz.

Eskerrak, Zeleta!

* * *

Arantzazu?

Euskera lorriña zabaltzeko bulegoa.

Olakorik!

* * *

Aldizkarien bat, diru-arazua dala-tadedo, txarto ei-dabil.

Izki mutu ta idazkera lorriñaren alperreko zameagaitik (gargeagaitik) ez ete?

Tamalgarria!

* * *

Ez, irakurle maiteok, ez «euskereagaz **iñora** ezin **zara urten;** zure **erritik kanpora ezin** zara ibilli... **ezin** dogu **jokatu iñoiz ere bardin** izkuntzetan».

Aulan, bai: Euskereaz **iñora** be **ezin** zeinke (zenezake) **urten.** Zeure **erritik kanpora ezin** zeinteke (zenezake) **ibilli.** Izkuntzekaz **iñoz ere ezin jokatu** geinke **(genezake) bardin.**

Akatz itzela da, idazleentzat, aditzak erabilten ez jakitea, izan be, gero.

Euskaldundu daiguzan pentzamentuak...

* * *

«Alemani'an alemanez, Itali'an italianoz, Castilla'n erderaz».

Ez al dira, ba, erderak, **guretzat, euskerea ez beste izkuntza guztiak?**

Ikasi daigun, ondo-ondo, euskeraz, mutillak, idazten ekiteko...

BALENDIN AGERRE'KO

SOBERANO

¡gizon artekoa da!

GONZALEZ BYASS

geldika ta ziur ba-goaz

BITOR, JON ETA JOSEBA'RI BIOTZEZ

Zenbat dijoazen ludi latz eta trakets ontatik. Bai makiña bat! Zenbat joan diran eta askoak deusik ez dakite! Ospetsua izan ba'da, egunerokoetan idazten dute bere berri. Ez ba'da, ostera, jaramon gutxi egin oi diegu. Izan gendun ordea gerekiko izan gendun guda mingarri ura, ta beste millakak bezela orra nun joan diran nere bi ezagun.

Ez da txarragorik, ezagun oiek joan eta ezer ez jakitea baiñon. Gertakizun au neri gertatu zait. Bi lagun oiek Gernika'n ezagutu nitun. Arrezkeroz makiña bat ur jetxi da ibaitik bera. Kalean zear askotan or ikusten giñan, noiz beinka alkarrekin baxo erdiak edan ere bai. Kaixo, Bitor! Kaixo Jon! Olako alkartzeak izaten genitun askotan. Aspaldi, ordea, ez nitun ikusten eta arritua nengon.

Ikusten nitun bere lagunak eta ez nun uste izaten joandako ori il zanik. Bein batean, ordea, bere lagun bati galdetu nion; «Aizak, nun zebillek Bitor?» Lagunak berealan begiratu ziraten ta erantzunik ez. Berriro galdetu: «Gaxo ote zegok?» Ordun, batek erantzun zidan: «Baiñan, ez al dakik il zanik?» Nik, arrituta gelditurik, erantzun nion: «Ez, zer ba, zerbait gertatu al zaiok?» «Motel, motel, il zala ba-dituk iru illabete! Gero ta geiago arrituaz ni, berari galdezka: «Baiñan, nolatan?» «Tenziyoak eraman dik. Etxean bere sendiakin telebizioa ikusten ari zala; jo ta bertan zerraldo gelditu uan!»

Norek usteko zun? Ez nik beintzat, ezta bere lagunak ere. Beti ikusten giñan eta ez zun antzik gaxo zegonik. Ain gizon jator, ona izan da, nola leike ori? Ala izan ordea, ta emen beste biderik ez daukagu: denok il bear.

Bigarren laguna ere, Jon, gizon on eta biotz onekoa zala guziok genekigun egi aundia zan. Au ere Gernika'n eta batez ere Bermio'n ezagutu nun. Beonen guda-etxea an izan bai-zan, ta arrezkero urte asko igaro ondoren, emen berriro ezagutu nun. Bitor bezela, noiz beinka alkartzen giñan edan lekuetan. Aspaldi ba-nekin ordea, ez zula edaten, biotzaren tinkadak erabiltzen zitualako. Mosto edo askotan azaldu ez ere lagun artera. Onekin ere, besteakin bezela gertatu zitzaidan. Ez ikusten bere lagun artean eta okerrago oraindik, bere lagun bat, emen nere etxearen goian bizi dan lagunakin, naizta ia egunero alkar ikusi ez nun jakin. Bein galdetu nion: «Aizak, nundik zebillek zuen lagun Jon?

Erantzun garratza berriro: «Ez al dakik il zanik?» Nik, «Ez». «Baiñan, bai-dituk sei illabete il zala!» Ta, galdetu nion: «Zer, ori ere biotzetik?» «Ez», erantzun zidan, «Eztarriko miñakin, kanser madarikatu orrekin! Gixajoa! oraindik 59 urte ta orren gazte il bear!»

Bi lagunak beren emazte ta semeak utzi dituzte. Makiña bat arrisku igaroak gera alkarrekin Bizkai'ko mendietan! Famili ederra azi, semeeri karrerak eman, ainbesteko lan latzakin, eta orain orra beren azkena. Goyan begoz biak!

Bukatu baiñon len, beste jator baten azkena aipatu nai nuke. Sagarzazu'tar Joseba bere izena. Zestu'ko seme on eta jatorra. Onen eriotzaren berri, nik beintzat, AGUR asterokoan jakin nun. Ori gaiñera, eguneroko izparringia irakurtzen degunok, askotan, naizta eriotz-berriak irakurri eskeletan, iges egiten digute ta konturatu ez zein zan, eta ori gertatu zitzaidan neri.

Azkenengo aldiz Joseba ikusi nuana gure alkar-batze artan, Elgeta'n, izan zan. Bazkaritarako mai artatik ez negon urrun, baiñan ainbeste batu giñan ezkero, ez giñan alkar agurtu. Orain bai, konturatzen naiz zein zan, bere emaztearekin maian ikusirik. Goyan bego, Joseba ere.

Zer gera gu? diot berriro ere. Umeak giñanean, Gotzai jaunak, kopetean igurtzi ta esan zizkigun itz aiek: «Auts biurtuko zera» aiekin gure azkena eltzen da uste gutxienean. Bien bitarteko gora-berak zer? Bien bitarteko burrukak zer? Eta alkarrenganako eztabaidak, ixtilluak, alkar ikusi-eziñak, zer? Ezer ez! Guztiok batean Goiko Jauna'ri kontuak eman bear; ori besterik ez gera: Autsa!

Zenbat joan diran Jaunaren aurrera! Bai makiña bat! Gure naiak naizta lortu ez lur ontan, an GOIAN lortzeko itxaropenez eman dute azken arnas minkorra. Laisterka goaz guziok. Batzuk jaio ta besteak il. Gizadia gizadi dan bitartean, emen ez dago beste biderik! Urrengo, gure txanda elduko da! Noiz? Ori, Jaungoikoak daki!

Bien bitartean, joan diranai otoiz bat eta GOYAN BEGOZ!

E. OZKIN

Udazken eta Neguko Antxobatea

Bajurako arraintzaleen artean zer-esan eta buruauste geien sortzen daben arraiña antxobea da. Len ez zan olakorik. Orduan be antxobeagaz asko ez zan irabazten, baiña etorrena etorren lez artu ta ixillik.

Gero, orain amar-amabi urte ezkero asi ziran antxobeagaz erabagiak artzen. Egunean zortzi milla kilotik gora ezin daitekela ekarri, neguan ezin daitekela atrapau, olako edo alako neurritik gorakoa edo luzeagoa izan bear ebala ta abar.

Idazle batzuk antxobaren arazo au euren idazkietan agertzen daben erea ikusita, itxasoko kontuan barri ez dakienak, lege orreik, arraintzaleai kalte egiteko beste asmo barik gobernuak emon dituala uste izango dau. Baiña gauzak ez dira ola. Lege orreik lenengoan arraintzaleak eurak artutako erabagiak dira, kofradien bitartez Kantauri'ko guztiak batzarrean batuta. Ta gero gobernuak emoten ba'ditu be, itxasoko arazoen arduradunai entzunda arraintzarentzat on ustean.

Aldi baten bear eban saneurrian saldu al izateko baiño antxoba geiago atrapauten zan eta geienez egunean 8.000 kilo ekarteko erabagia artu eben eurak arraintzaleak. Geroago, neguan besigutea laga ta antxoba txikitan asi ziran (antxoba, andirik neguan ez zan izaten) eta udabarrian antxoba gitxiten asi zanean, neguko antxoba txiki atrapautearen ondorena izan eitekela arraintzaleak esaten asi ziran; ta urte asko baiño len neguan antxoba atrapautea galerazo egin zan.

Legeak danen gogokoak gitxitan izaten dira; baiña antxoba arazoan arraintzale geienak eskatzen eben eran egin ziran.

Uste onagaz egiñak izan arren legeak denporeagaz onak ez urtetea izan leiteke, edo goraberak aldatu diralako lege orreik aldatu bearra izatea.

Udazken onetan prantzesak antxoba andia ta asko atrapau dabe. Emengoak ostera aldi onetan antxobaten ibiltea galerazota dauke. Mugaz andiko euskaldunak eta goragoko prantzesak ederto irabazten, eta gure arraintzaleak, ontziak kateetan lotuta, egiteko barik kalerik kale. Errazoia be ba-dauke ta ez dira pozik ikusi. Izparringiz be orain antxobatara joatea galerazoten daben legearen aurka idatzi izan dabe idazle batzuk.

Udazken eta neguan antxobatan ibiltea galerazoten daben legea, antxoba andia atrapautea galerazo naian egindakoa ez da, neguan andirik atrapau eitekeanik iñoren buruan egon ez dalako. Ni 1925'garren urtean asita arrain lantegian lan egiten dot, ta aurten arte antxoba preskuagaz ez dot lanik egin Bagilla igaro ezkero. Aurten bai, baiña Bidasoa andiko aldetik, Donibane Loitzun eta Bretaña'tik akarrita.

Aurtengo udazkenean izan dan lako antxoba andirik emendik aurrera aldi onetan beti izango danik ez neuke esango. Bear bada beste urte mordoan ez dogu ikusiko. Baiña edozelan be lege orrek aldatu bearra dauko. Antxoba andia atrapauteak ezetariko kalterik dakarrenik iñok ez dau esango. Elduta ta jausten dagoazan sagarrak zugaitzetik batzea galerazotia beste da ori.

Antxoba txikia atrapautea galerazotea, ondo dan ala ez, eztabaidak izan leitekez baiña andiagaz ez da olakorik.

Beraz lege ori luzaro baiño len aldatuta ikusiko dogukaloan gagoz.

KAMIÑAZPI

MATXITXAKO

IX

Texeira jaunaren eretxiak eta arraintzalien araudia

Erri Edesti bat idazteko bear-bearrekoa da erri orren jazokun, ekandu, oitura eta beste gora-bera guztiak zeatz-zeatz arakatu eta jakitea, batez ere erri orren izkuntzea, ba, mintzaerea erriaren arnasea, biotza eta bizitzea da. Eta TEXEIRA jaunak, dakusgunez, onetariko arazo asko ez ekiezan; ostera, ba'litz Bermeo onetan bere egotaldia laburra izatea, eta, bear ba'da, estutasunak eraginda «ariñeketan» idatzitako bere usteak izatea; guretzako ain mingarriak eta kaltekorrak dirazen eretxi «oker-bidekoak», Bermeo'ren Edesti garbi, zintzo, kementsu, Gizabatz-aldezko eta kutsubakoa, Bizkai-buru lenagotik izaniko Uri ospe-andikoa, aintzagarrizko egin-kuntzak egindako erriaren izen-ona, idazketa «arin» bategaz zikindu eta naigabez laga gaituan malmuzkerizko eretxi «oker-okerrak».

Eta TEXEIRA jaunak, ain aldi laburrean ez ba'eban astirik izan arazo orreik aztertuteko, edo jaun orrek, ezin ba'eban adizkide on bat aurkitu Bermeo'ri yaokazan gertaerak jakin-erazoteko eta batez ere adi-erazoteko gizaldietan itxas-lapur eta «untzizkilloakin» edo «corsarioakin» ebillen guda amorrotuaren zertzeladak, TEXEIRA jaunak, izango eteeban minberatasunik erri onen mintzaera «berbakuna» entzun eta oroituteko izkuntza onen «itz-zaratea» ere, aldi aretako ikara-ikarazko bizikereagaz naspilduta egoanik?

Ainbat eunki edo gizaldiak igazi-arren, gaur egunean ere, bermeotarren mintzaerea beste Euskalgietatik zerbait aldakuntz dauko, batez ere oguzkerean eta olantxe, belarri zurrak, beingoan oartuko dabe itzaren amaikeran biotz-tamaltasunaren biguntasuna, eta oguzkera berezi onen sortuerea ez da besterik aintziñetako itxas-lapur, «untzizkillo» edo «corsario» eta madarikatuen gudaketak, itxas ez-bear itzalgarriak eta itxasoetako neke garratzak, odolizate bertan lagariko lorratzak, eta jayokeraz dirauanak.

Zetara, ba, TEXEIRA jaunak, arazo eta gertaera oneik jakin barik, zelan oroituko zan Bermeo itxas-erri onetan, gizonaren adimena danetik onuntz, ao-bidez, gurasoekandik-gurasora erakarritako Itxas-Lege argi eta sakonak bai zireala erri onetan, eta 1365'garren urtean, TEXEIRA jauna erri onetara agertu baiño 267 urte aurrerago, Erri Batzar Nagosian, Tala'ko Andra Mari Eleizan, ospe andiz, BAYEZTU eta ONARTURIKO Itxas-Lege ain goralgarriak zireala?

Eskier, TEXEIRA'TAR PEDRO jaun jakitunak, Bermeo'ren izate eta bizikerea gogotan izan ba'eban, eta batez ere BERMEO'KO ARRAINTZALIEN ARAUDIAREN barri jakin ba'eban, egiz, «Oker-bideko eretxiok» ez ebazan idatziko, ba, Itxas-Araudi orretako «Itxas-Lagiak» zuzenak, zeatzak eta sakonak dira.

Bardin, gaur lez, aldi aretan ere itxas-untzietan osoro gebenduta edo galerazota egoten zirean errietak, burrukak eta baita ere itz-saminkor, iraindukor eta baita itz-ustel, loikerizko eta lizunkerizkoak.

Eta zerbait jakin dagiguzan gure ARRAINTZALIEN ANAIDIKO ARAUDI onetako «Itxas-Agintza» batzuek, beintzat, idaz-lantxo oneri yagokozanak ementxe, labur, daminguz:

«16'garren Atal-burua.—Arraintsuan urten eta gorpu illen bat aurkitu ezkero, billatutako untziak gorpu ori artu eta Urira eroan dagiala, eta bestea euren 'mariya' emon».

«58'garren Atal-burua.—Anaidi onetako iñork bere untzirako, beste untzi batetik ez dagiala ezetariko gauzarik artu, bestela Atal-buru onen bidez zigortuak izango dira».

«65'garren Atal-burua.—Anaidikide artean burrukea sortuko ba'litz, iñork ez dagiala bataren ez bestearen alde-egin, banatu baiño, bestela Atal-buru onen bidez nekaldua izango da».

«66'garren Atal-burua. — Anaidikide iñork ez dagiala izkilluz iñor zematu, bestela Atal-buru onen bidez zigortuak izango dira».

ANAIDI ARAUDI onetan bai-dira beste ainbat jakingarrizko Atal-buru zeatz-zeatzak, gaur egunean erri askorentzako benetako ereduak.

Gure ARRAINTZALIEN ANAIDIKO ARAUDIAK bere Atal-buruetan adierazo eta «Aginduten» dauskun «Itxas-Lege» oneik ez datoz arira TEXEIRA jaunak idatzitako eretxakaz, ez orixe! Gure Itxas-Legeak zintzoak eta gogorrak dira, Itxasoetarako izan bear daben LEGE ZEATZAK, ZURRAK, JAKINGARRIAK, alkar-maite izatekoak, alkarri lagundutekoak, itxastar guztiai maitasunez poza eta gentza, «bakea», jadetsiteko legeak.

Bermeo'ko erria eta beste gure itxis-erri batzuek itxas-lapur eta «untzizkillo» edo «corsario»ekin gizaldietan gudaketan ebiltzazan eta itxas-lapur oneik gure itxasoetatik alde-eragiteko zintzo jagi zirean aurka egiteko, eta itxastar dan-danak, MATZINTZALARIAKAZ bat eginda, MATXITXAKO itxas-ertzetik, euren indar eta kementasunakaz itxas-lapurrok menperatu eta «birrindu» ebezan, erakarririk gure itxaso eta errietara, ainbat gizalditan antziz itxaroten eben gentza, «bakea», zoriona eta poztasuna, errien bizitasuna.

(J. l., jarraituko da)

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

Nere Olerki Txorta

ALBIZU'TAR BALENDIÑE ZUMAIARRARENA

Liburutxo polit, atsegiñ ontan, Balendiñe'ren olerkiak bai argitu dutela nere biotz ameslaria! Eguzkiaren urrezko izpiak olerki biurtu dira!

Aspaldi ontan ez ditugu irakurri ta txastatu ain bertso alai, pozgarri ta xarmantak. Nere ustez, gazte denborakoak dira atsegiñenak... Urte gazteak, urte alaiak, ez al da ala?

Sn. Telmo'ko kalea dala; Sn. Pedro'ko Pestak dirala, gure emakume olerkariak badaki, garbi asko, zer egiten dun!

«Nere aita itxas-gizona, ama Endañeta baserrikoa, orregaitik maite ditut nik, kresala ta garoa...»

Mendia, itxasoa, Maitasuna, ara or olerkiaren iru pitxiak, biotz barruan sortuak! Eta Euskera errikoia, errexa.

Baiñan, gure guda zorrotz, negargarriarekin, Euskaldunak, millaka ta millaka iges egin zuten erbestera dena galduta gero; ta oiekin gure Balendiñe olerkariak. Besteak, Euskalerrian gelditu ziranak!... Orregaitik, erbestean idatzitako bertsoak, Carakas'en esate baterako, ez dira ez, ain alaiak, ta bai sakonagoak.

Olerki oietan, argi ta garbi nabaitzen da Aberriarenganako errimiña; betiko il zan igaroaren usai gozoa! Fede ta Pake usaia? Igaroak igaro... gauza bat bukatzen danean betiko bukatzen da!

Dana dala, naiz erbestean bizi, edo iraun, bere sorterriarenganako maitasuna ez da ez itzali gure Balendiñe'n bertso garbi, beroetan! Emen ez dago lekurik gorrotoarentzat! Ezta bear ere, naiz gure gudak Euskalerri osoa ondatu. Barkatu, bai; aaztu, ez! Aaztutzea iltzea da!

«Urrutira joan zana, Juli-Simon'en alaba, bere erriaz aztu ezin da, gaur, biurtu dana; Etziok begira Juli-Simon zana!» Gora Jainkoa! Zeruan, illargi eder zuri-zuria! Emen, Berastegi'n, zer otza! Eguna bukatzen ari da!

Ta, Euskera? Gure suaren zai dago, irauntzeko, bizitzeko!

MATXIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

Burnigintza Ludian

Burni ta Altzairu'aren Nazioarteko Elkarte'ak —IISI'k— urteroko batzarra ospatu du asko ez dala. VI'a zan oraingo au, eta irureun altzairugizon —ogei eta bederatzi laterritakoak— bildu ziran Londres'en. URSS eta bere inguruko laterri komunistak ez daude Elkarte onen altzoan.

Eldu zaizkigun albisteek diotenez, batzarkideak baikor xamar agertuak dira oraingo batzarrean. Billeretan ez omen zan igazko batzarrean bezelako inkatekorik aditzen. Izan ere, aurtengo urtean, altzairu ta burnigintzaren ekintza poliki omen dijoa. Eta datorren urtean, Johanesburgo'n ospatuko dan VII batzarrerako, egoera obetuko dan itxaropenak dituzte.

Aurtengo egintzak —ludi guzikoak baturik— 628 milloi tonelada or nunbait izango diran ustetan daude IISI'ko arduradunek, joan zan urtekoak % 8 geituko diralarik. Urren urtearekiko, berriz, egiñak dituzten aurrezikuspenez, 660 edo 670 milloi tonelada egitera iritxiko omen gera, ots, aurtengo urte ontan baiño % 6 geiago; epe luzerako xedeeri dagokien urteko geikuntzaren neurria bein eta berriz bete aal izango dalarik.

Ala ere, altzairugilleek ba dute zertaz kezkaturik. Izan ere, zenbaitzuk beldur dira, burnigintza luzera ea gainbeeraka dijoakeen ekintza ez ote dan. Eta zergaitik ote? Ludiko burni ta altzairugilleen gaur eguneko egimen eta salbideekiko tartea nabarmena dalako, au da, eskeinte-eskaeraren arteko ezegokitasuna dala-ta. Jakiña, egindako guzia ezin ba'dute sal, gaiñezkako altxorren zama astuna beraien bizkar artzera bearturik daude, dirutza izugarriak kokaturik gelditzen zaizkien ezkero. Eta ostera, egimena geldiarazi ezkero, ekintzailleeri irabaziak murrizten zaizkie. Burnigintza, izatez, oiñarrizko ekintza-mota dalarik, bere jakiñeko zamak txit astunak oi dira. Eta onetxek ezartzen du egintzak egimen guziaren arabera geitu bearra. Ala ta guziz ere, ez litzake bidezkoa izango «dunping» egiñaz erabakitako salneurrien azpitik saltzera jotzea, iñoiz baten batzuek egin izan duten bezela.

Ortaz ba'da, salbide berriak urratzera jo bearko litzake, altzairuarentzat erabilkuntza ta azoka berriak sortuaz. Japon'go ordezkariak, ots, Elshiro Salto jaunak zioenez, dagonekoz azoka berri bat aurkitu zaio altzairuari: itxasoa. Altzairugizon onen aburuz, urren amar urteetan itxasoan egingo diran arrolio-ikerketak 30 milloi tonelada altzairu irentsiko dituzte; jakiña, arrolio-zulo, olio-bide, iraztegi ta gordetegiak kontuan arturik. Arrolio-zulo bakoitzaren tramakuluak bakarrik 30 milla tonelada altzairu artzen omen ditu ta Goiko Itxasoan —Mar del Norte— zear dijoan olio-bideak 7 milla tonelada. Meategietan, arraintzurako ta abere-motak zaintzeko sistemak eratzen, itxasoko indarra erabiltzen eta urak gezatzeko lantegiak ornitzen ere altzairu pilla izugarriak aituko dira.

Japon'ek berak lur lauak txit urri dituelarik, 1980'gn urterako 575.000 ektareko eremu osagarri bat egin bearko omen du. Kai eta ugarte artifizialak eraikitzen 18 milloi tonelada altzairu erabilli bearko dituzte japondarrek urte berauen buruan. Beste ajolazko asmo bat agertu zuen Salto jaunak bere itzaldian: ur-gaiñeko egazkin-zelaiak eraikitzea. Auetako bat Osaka'ko badia gaiñean egin nai litzake. Eta erabakitzen duten egitamuaren arabera 750.000'tik 3.700.000 tonelada bitarteko altzairu pilla artuko du ekintza onek. 4.800 metru luzetara ta 1.800 zabaletara edukiko lituzke ta 315.000 milloi yen'etara igoko luke bere eralkizunak. Emen ez dira amaitzen, ala ere, japondarren asmoak, altzairuarentzat azokak edo erabilkuntza berriak billatzerakoan. Lur-azpiko bideak eta Japon osatzen duten ugarteak elkarri lotzeko zubiak eraikitzen beste iruzpalau milloi tonelada aituko lituzkete. Orrez gaiñera, itxaso barnean ikustokiak, jatetxeak, arrain-ontziak eta nai izan ezkero uriak ere eraiki litezkeelarik...

IISI'ren batzarretan itza artzeko eskubidea ez da altzairugilleetara mugatzen, ots, ekintza-mota beronekin zer ikusirik duten diru-ezarle ta erosleek ere ager ditzakete beren iritziak. Adibidez, National Westminster Banketxe'ko lendakaria ez omen zan erri-ekintzen adiskide agertu. Burnigintzak erri baten azkundean duen garrantzia ukatzeke, estaduak ekintzaille bere burua biurtzearekin gaiñerako iñoren ekintza ta banketxetako zuzendarien zalantza eragiten duela baiezten zuen. Eta plangintza egoki bateri oztopo ta eragozpen latzak ezartzera omen dator aren jokabidea. Kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko betiko eztabaida gogorazten digu ikusbegi onek.

Altzairu-erosle ospetsu batek ere artu zuen itza: Guest Keen & Nettlefolds'ko lendakariari ere ludiko burni ta altzairugintza egiazko egimen galgaz beera eutsiaraztea irtenbiderik onena litzakeenik ez zitzaion iduritzen. Askoz egoki ta onurakorrago zeritzaion plangintza orokar bateri ekitea. «Geure kabuz ezin ote dezakegu eratu egimen arazoaren azterketa orokar bat? Eta au dana ez al diteke IISI'ren barrutik egin?», galdetzen zien aurrean zituen batzarkideeri.

Elkarte'aren lendakari zaarrak eta berriak eskeiñi zituzten itzaldi osagarrietan nabarmendu zanez, oraingoz ezin diteke IISI ta laterri komunisten arteko lankidego baten ametsik egin.

Eta Elkarte'aren altzoan diran espaiñiar altzairugilleeri dagokienez, esan dezagun berauetako bost beiñepein euskal-errikoak dirala: Bizkai'ko Labe-Aundiak, Aristrain, Etxeberria, Babcock & Wilcox eta Arrasate'ko Zerrajera Elkartea.

JOLU'K

BETI AZTÉN

Oraingoak baiño egun beteagoak ikusi izan ditugu. Barruti guztietan, gaiñera. Ezik azkenaldi auetan bestelako buruausteak sortu zaizkigula. Oraintxe-oraintxe agertu dan iritzia indartu baiño len, beste iritzi berri bat datorkigu. Iritzi onek ere, gizartean bere tartea nai lukeala! Ondoren, lanak ezin zuzen eratu! Eta... Iparragirre'k bere «Eman da zabal zazu» esan aurretik, Euskalerri'ko ateak itxita ote-zeuden? Ez, noski!

Gure mendiak ibar meeak estutzen ba'dituzte ere, gu gerok ibiltari gertatu gera! Gudariek burrukara! Artzaiak urrutira! Salerosleak irabazi gizenetara! Argiñak txadon bikain eta iauregi zabalak eraikitzera! Mutil gazte iaioak apaizgora. Etxalaba ederrak lekaimetzara!... Bai, Zenbait bazterretakoak euskal-baratzetik lekaime-gai gazte asko bildu izan dute.

* * *

Azkoitiar Ioseba Andoni Zabaleta apaizazan. Neroni Ezkio'ko Andua'n nintzala, Mikel deun Gongotzonaren agertze-eguneko iaietan itzaldia izan zezan Ezkio'ra etorri zan. Izketan ari giñala, azkoitiarrari auxe ialki zitzaion:

—Lengo uda ortan ibiltaldiz Ierusalem' eraiño iritxi nintzan. Aruntzakoan eta onuntzakoan itxasoz genbiltzala, ontziak kai zenbait ikutu zituan. Iri aietako lekaime-etxeetan neronek zuzendutako lekaime euskalduna aurkitu al izan nuan.

Eta guztiok dakigu oraindik ere euskal-lekaimeak toki askotan ditugula. Onenbestez arira noan!:

* * *

Garai aietan, lekaimetxe txiroa ba-zan, ez ain urruti. Etxe artako lekaime buruak Egoarrietarako ianari egokiak nai izaten zituan. Pipar-opil aundia ere bai. Noski! Opil ori erriko okiñak atontzen zion. Gizona oso biotz onekoa bait-zan. Egun egokian lekaime buruak okiñari deitu zion:

—Egunak etorri dira!

—Alaxe da! Zerbait nai?

—Ain onak ez diran berriak ditut.

—Norbait gaxo, ala?

—Ez! Iainkoari eskerrak osansutsu gera! Auxe bakarrik: aurten igez baiño bi geiago gerala! Lekaime-gai berriak artu ditut. Euskaldunak, ta idia bere adarrekin irentsiko luketenak. Urteoroko opillari oiek koska ederra egingo diote; bi geiago. Esateak ere lanak ematen dizkit.

—Ta? Opilla zenbatekoa egin bear dizut? Berrogei errealekoa, ala aundiagoa?

—Aundiagoa bai! Baiñan, txanponak lengo urteetan bezela, gero!

—Ongi da! Ongi da! Ori besterik ez ba'da, ez estutu!

* * *

Urteak beti urte izaten; baiñan, urra beti ez nai aiña biltzen. Izan ere «urte» itza, urr asko izaten danekoa degu. Adiburuz elurretik «elurte» degu. Era ortan urr'etik «urte». Okiña beldur zan eta lotazillaren erdi aldera emaztearekin erausian zan:

—Zer egin ez dakit! Lekaimetxetik deika noiz etorriko zaizkidan beldur naiz!

—Gal-iriñez egin bearrean, opilla artiriñez egiozu!

—Ez dakit, ba! Ez dakit!

Betiko garaian lekaime burua opilgilleari eskean asi zitzaion:

—Irabazi aundiak dituzu, noski! Zere etxeko leio ta ateak, beintzat, ederki apaindu dituzu!

—Bai! Aurten pipar-opillari ur-ale geiago erantsi al izango diot. Antz-emateko eran, arean! Ez lengo urtean bezela, guztia irinduta goxo-goxo!

—Ori ongi! Ez dakit, ordea, nola ibilliko zeran. Nere etxean aurten ere bi lekaime gazte geiago ditut. Biak euskaldunak. Tuntun neskame ioan baiño onera etorri naiago aiek! Oso mirabe bikaiñak dira. Orain arte taloz eta eznez guri-guri aziak.

—Zere etxea betzen azkarra zeranekoa entzuna naiz.

—Beraz! Aurten ere opilla lengo urtean bezelako erosneurriz.

—Bai, etxekoandre, bai! Orrenbeste egingo dizut!

Ta, okiñari begia onetxek argitu zion: bi euskaldunak «artoz» aziak izateak. Arto-zale ba'ziran, artiriña izango zuten! Bere emazteak asmatu zion!

* * *

Urrengo udan, gure etxe-betetxaillea ikustera Gotzai iaun bizarzuria etorri zan. Tokyo'tik, gaiñera. Itz leuneko gizona oso. Gotzai iaun euskalduna. Iardunaldi luze ondoren Gotzai iaunak:

—Zuk, IESU'ren maite orrek etxe beteegia dezu. Zure menpeko sei lekaime artuko nituzke. Seirak euskaldunak! Lurralde aietako izkera berialaxe ikasiko luteke ta angoekin bat etorri eziñik ez dute izango.

Etxe-betezaille maratzak berekiko au zion: «emaille eskuzabal ba'naiz, eskean ibiltzeak lotsa gutxigo damaiket». Eta, sei lekaime eman zizkion. Bi adiñean sartzen asiak. Besteak gazteak oso. Erruki gabe lana egin zezaketenak.

Etxe artatik sei irten zirala ikasi zutenean, alderdi guztitatik zetozkion lekaime-gaiak. Eta, urte artan «zortzi» neska gazte artu zituan. Oraingoan ere guztiak euskaldunak. Gabon-gabean dantzan egin bear zutela-ta ez ziran asarre!

Gure egun berri-berri auetan, Lekaime sartzen diran neskatxak non-nai dantzan egiteko beldur aundirik ez dute izaten. Baiñan, leenagoko aldi zaar aietan, beren lekaimetxean bakarrik ezkutuan eta Gabon-gauaz egiten zuten dantzan, gauerdiko mezaren zai loak ar ez zitzan.

Lekaime burua bere opilgilleari esaten asi zitaion:

—Itxaropen aundiak al dituzu?

—Itxaropenak aundi ta irabaziak urri. Ez bait-naiz zu bezela oitua; sei biali ta zortzi ekarri. Emengo auzo guztia era bat txunditu zan.

—Niregana etorri nai dutenak asko dira-ta. Eguarriz alako opil eztitsuak izaten ditugu, berriz!

—Aurten gaizki bearko degu!

—Ez da egia izango!

—Lau illabetez emaztea oiean egon zait. Eta, nituanak eta ez nituanak, osategietan erre ditut.

—Zerbait entzun det. Baiñan, orrenbeste zanik ez nuan uste.

—Besteren etxekoen miña ariñagoa izaten da.

—Guztiok izaten ditugu geron negarkizunak.

—Zuek ere bai?

—Noski! Zaarrek osasun ona, ta aiek beren indarrei erarago eutsi dezaien negurako berogaillu egokiak erosi ditugu. Eta, zortzi neska gazteena ba-dakizu. Orain ere euskaldunak. Oriek bezelakorik ez bait-dago! Lanean aspergaitzak! Aritza baiño zendoagoak! Arkaitza baiño tenteago ibiltzen diranak.

—Bai! Ta, gero aien baserrietan ainbeste mutilzar. Ez dakigula uste al dezu?

—Lekaimeak, praille sartzen diranen ordaiñetakoak dituzu.

—Gauden isillik!

—Oraindik beintzat, ez!

—Esatekorik zer dezu?

—Opillarena!

—Bai, ta! Baiñan, aurten zerbait eman bearko didazu. Lengo urteetako ua ez nuan ezertarako izaten.

—Ezin osaturik nabil! Ikatzarena esan dizut.

—Ongi da! Opilla utsean egingo dizut. Beste urte oietan baiño txarragoa ez da izango! Ez al zenien igarri izan, gal-irin ordez beste urte oietan baiño txarragoa ez da izango! Ez al zenien igarri izan, gal-irin ordez beste zerbait naasten niela? Ez! Utsean, eta len bezelakoak. Zuk ezer ez didazu egotzi izan; baiñan, barruan arra dabilkit!

«Ezer ez damanari ez zaio ezer ematen!» (Biltzaillea).

ETXEBERRIA'TAR P., S. I.

1972 KARMEL 3-4

Aurtengo azken ale biak baten, eta atzeko azalean oar au: «Parkatu! Gitxien uste danean sortu oi yakuz olako edo alako eragozpenak, oin-zoztorrak. Guri be olakoak jagi yakuz bidean. Eta aldizkari onek bere pausua eroan dagian, zenbaki bitik bat egin dogu. Parkatu, beraz!»

Baiña ez diño garbi-garbi zein zoztor izan dan ori. Onetan gabiltzanok, ba-dakigu bai, laguntza ezarena izaten dala geienetan. Alako: «ederto diarduzue, jarraitu bide orri», baiña sakelak itxita; «bestea», euria lez, laiñoetatik-edo jasoten dogulakoan. Ba'litzake ori be ez izatea, ala ta be, laguntzailleak lagundu zeuena ziur dakizun ekintzari, ta ez bada-ezbadakoeri.

Beti lez, idazlan eder eta irakurgarriz betea dator, or ditizue Intza, Onaindia, Arrinda, Solozabal, Etxeberria, Urrestarazu, Azpeitia ta beste idazle pillo-txorta ederra. Olerkiak be sakonak eta ez betegarri. Baiña danen gaiñetik irakurri ta ausnartu ta barriz irakurri sarrera lez dakarren «Zirristuak elizan?» lan sakona.

Eta ez daigun aztu, idazle orreikin eta beste azkokin ikusteko erea izango dogula biar, il onen 26'garrean, bertan jakin erazten dauskun lez, Larra'ko Olerki-Eguna ospatzen dalako: Meza, olerki, sari, itzaldi ta bazkari alaitsua.

J. l., an ikusiko dogu alkar.

IBUR

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK
ZAZPI-KALEAK
Martín Aldazabal TENDERIA, 3
CASCO VIEJO
BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ERRIETAKO BARRIAK

Arratia

Naizta aspaldiz Bilbo'n bizi, izenak ezkutuan itxirik, emen aitatuko dodazan sernaremazteak, oso ezagunak dira Arteaga'n eta Iurre'n.

Urte gitxiren buruan, senarraren sudurmusturra gorri-baltzikatua izan zalako, arpegia mats-aienez betetu ta arnas-bideak estutu... eldu eutsan, ba, emazteak, belarritik eta, aupa! osagilleagana.

Gizona ixil-ixillik egoan, Andrea marmar gaixotasunak autortu ta agertuten, eta sendagilleak, guztia entzun eta gaixoaren soiña zeatz arakatu ondoren, diñotso:

—Ardauaren ardauz atzondo biko uia dozu, ta ez egizu edan. Kearen keagaz arnas bideak kedarratu dozuz eta erretzea Kaltegarri yatzu. Guzur ganorabakorik ez esan eta askozaz gitxiago birao ta astakeriak.

Gorbaie'ko beleak Gorbaie maite-ta, gure adizkide arteagatarrak lengoetara jo, bideak aldatuz. Ardaurik ordaindu, ez; edan, ura ba'litz lez. Kebedarra erosteari, itzi; ondoko lagunen bizkarretik izaten danean, kee guztiak iruntsi. Guzurrak eta biraoak debekatzea apaizen zeregiña dala-ta... len baizen gogor ekin...

Beste bein, gizon au, etxean izan zituan diruak eta orratz-ontziraiñoko guztia kolkoan artuta, lantegira. Eguerdian baiña, bazkaltzerakoan, diru etxearen ate aurretik igaro bearra eukalarik, emaztea antxe bertan, gizonaren begira guraize-artazi andi-andi zorrotzak zabalik eukazala. Gizona, emaztea alan ikusirik, belarriak okotzeraiño makurtu, ta barrura. Arrezkeroz ez dabil dirutza ta erronka andirik, naizta len aiña ta geiago edan eta erre.

IURRE'TIK

Ezkontza-jaiotzatzaz barririk aspaldiz izan ez dodan arren, Etxebarria'tar Segundo (Arturo ospetsua) izan zanaren ondorengoetan sendi-ugaritza izan dogu.

Etxebarria'tar Jasone'k, Iñaki Ozerin lemoatarraren emazteak, seme eder bat izan dau. Ugutz edo bateo izena, Jon, ipiñi dautsoe. Etxebarria'tar Kepa'ren emazteak, Errosa-Mari'k be, txiletarra au, alabatxo politpolita izan dau; izena, Agurtze.

Beoakioez AGUR onetatik zorion gartsuak eta ama euskeraren eskari au: «Arduratu ta alegindu zaiteze, gurasook, Euskalerria'renganako maitasun beroenean azi ta eziten.

LANDAJUELA'TAR A.

Berriz

Logurarik barik nago pozaren-pozez. Urrillaren 29'an, domekea, Murgoitio'ko auzunean izan nintzan, ermitako lanak aurrera doazala ikusi neban bertan, amaitzeko bidean ganera. Ta, ori dala-ta, an lan egin dabenei bazkari bat emon yaken, eta... merezi be bai, bestela, juen eta ikusi...

Leku eder-ederra dago an, eguna pasatzen joateko, ume ta nausiendako aize garbi ta jolas leku atseginña. Gutiz berrogei lagun izan dira lan egin dabeenak, eta irurogei lagun inguru batu ziran baba-jate orretara, bazkalaldi zoragarria osotzen.



Gure Karmele, izan be, asmatzaillea da, eta entzun izan dotenez, beste zerbait be antolatzeko asmoetan ei-diardu; ba, aurrera orduan, orrela ba'da! Berriztarra naizen aldetik, agurrik beroenak bialtzen dautsuedaz or ibilli zareen laguntzaille guztioi, baita Llona'tar Josu abade jaun gazteari be, ain zintzo jokatzen diardualako, gero, baita auzoko gizonei, emakume ta gaztei, eta asteroko AGUR onetako idazle dan Karmele'ri, an ikusi gendun ba, jo ta ke, poz-pozik.

Uste dot, bera lako idazleak obetoago idatziko dabezela auzoko gora-berak, eta ikusteko izan gaitezala. Agur ba, guztioi, AGUR onetatik.

BERRIZTARRA

Gatika

Egun on, lagun guztioi; Zelan zagoze? Danok ondo egongo zariela uste dot. Gaur nere eretxia emongo dot baserri eta baserritarrari buruz.

Euskal erriko baserri baten bizi naz. Bene-benetan oso polita da baserrian bizitzea, baiña beste alde batetik oso gogorra.

Polita, euskal-erriko landen edertasunagaitik, eta mendiak zugatz ederrekaz beterik dagozalako. Uste dot, antxiñan gogorra izango zala, ba nik, nere osaba Juan'eri entzunda daukat.

Antxiñan gogorra zan, tratorerik, ordeñadorarik e. a., etziralako egon. Orain, barriz, errezagoa da, ba, aurrerakuntza aundiak dagoz.

Baiña orain, euskal-erriko baserrietan baserritar gitxi geratzen dira. Batzuk fabrikera lan-egiten, eta besteak, kalera bizitzen joaten diralako.

Beste ezer barik, agur eta urrengora arte. Zuen laguna...

AGIRRETXU'TAR BEGOÑA
13 urte

Zeanuri

GIZON BAKANA BENETAN

Urrilla'ren 14'gnean, eldu zan 30 urteko gizon bat 40 kiloko kurutzea lepoan ebala. Gauza bakana benetan XX gizaldi nastu onetan. Bere izena Arthur Blessit da. Bere aurretik beribillean atoean Sherry emaztea lau umegaz bialtzen ditu. Sei, lau, iru, ta urteterdikoak. Dirurik ez dau artzen. Zintzotasunaren ezaugarri ona da. Bere asmo bakarra, Yesu-Kristo'ganako maitasuna zabaltzea da. Orretarako bere itzez gaiñera itsarkor diran orritxo biribil batzuk banantzen ditu, Kurutze baten inguruan itz oneik dabezala: «Iribarre egizu, Yesus'ek maite zaitu-ta» «Zoaz Yesus'gana» «Yesus benetako bakea da». «Yaungoikoa Maitasuna da», «Yesus'ek agertzen dausku». «Biurtu zaite Yesus'gana» ta abar.

Ipar-Amerika'n, egun baten, kurutzea erre egin gura eutsoen, baiña itz-eginda beraganatu zituan eta bakean itxi eutsoen. Lenengo kurutzea apurtu egin yakon eta atzean txirrintola bat ipiñi bearra izan eban apurbat arinduteko.

Nondik etorren itandu neutson eta erantzun eustan Los Angeles'tik etorrela, urte bian 10.000 kilometro ibilli zala, Amerika, Irlanda, Inglaterra ta Prantzia zear, Oin Gazteiz'tik Madril'era yoyala ta gero Portugal eta Aprika'ra.

Euskal-Errian egin eutsoen arreratzaz itandu neutson eta auxe erantzun eustan: Wonderful! Arrigarria! Ibillaldi zail eta nekatsua izango yakola esan yakonean, bere erantzuna zan: «Yenteak uste dau alan dala, baiña ez da. Gure arazoa. Yesus'ek maite gaituala-eta, pozik egiten dogu».

Niri zer deritxodan itanduko ba-leuskie auxe esango neuke: —Protestante ete zan itandu eutsonean auxe erantzun eban: «Kristo'na naz. Ori da garrantzitsuena». Beste aldetik, zabaltzen dituan ingitxoen inguruan, auxe agertzen da: «Arthur Blesitt Minister of Sunset Strip.—Hollywood». Orrek esan gura dau olango talderen batekoa dala. Baiña, dana dala, Paul deunak Pilipo'koai esandakoa gogoan artu daigun: «Edozelan be, azalkeriz naiz benetan Kristo iragarria izan ezkero, ni poztu egiten naz». (1-15)

Beintzat «Godspell» eta «Jesus-Christ Superstar»eko antzerkilariok baiño obeto agertzen dau Yesu-Kristo'ren Yaungoikotasuna.

URIGOITIA

Ondarroa

ELEIZ-IKASTOLAK AURRERA

Iraillaren azkenengo egunetan, martxan jarri ziran, ostera be, gure Ikastolak. Umeentzako toki geiago egiteko, konponketa batzuk be egin biar izan doguz: orain beste gela bigaz nasaiago egongo dira umiak.

Aurtengo onegaz irugarren aldiz asi dogu gure Eleiz-Ikastolia ta pozik egoteko moduan gagoz. Lenengo urtean 70 umegaz asi giñan; igaz 170 ume euki genduzan eta aurten 250 ume.

Ainbeste umerentzako lengo andereñoak ez ziran naiko ta beste bi geiago billatu biar izan doguz. Orain, ba, 7 andereño daukaguz guztiz: eurotatik 5 maistrak dira ta 2 laguntzalleak; guztiak esku onekoak umeentzat.

Orixe da, izan be, biar doguna: esku oneko andereño ta irakasleak gure umetxoak euskaldun eta kristiñau lez zintzo asi ta ezi daiguzan.

ARRAINTZA-ESKOLAKO IKASKETAK

(«ESCUELA DE PESCA»)

Ondarroa arrantzale erria da osoosoan eta bere bizibide guztia itxasotik iatorko. Orregaitik gure errian ezer egokirik ba'da, bat beintzat «Arraintzale-eskola» edo «Escuela de Pesca» deritxon ikastetxea da.

Orain dala urte asko sortu zan eskola au, Eleizaren menpean, toki txiki baten; orain, ostera, bost pisoko etxe barri eder bat da, aurrerapen guztiakin eta maixu jatorrekin.

Eskola onen bidez erreztasuna emon nai dautsegu Ondarru'ko ta inguruetako arrantzaleeri «makiñista», «arrantza-patroi» edo «kosta-patroi», titulo ofizialekin, izan daitezan.

Amaika makiñistak eta amaika patroik urten dabe eskola ontatik... eta guztiak ondo gertauta, gaiñera: ori argi agertzen dabe examiñak, euneko larogeita amarrek beti ondo urteten dabe-ta.

Aurten 70 gazte inguru izango dira «arrantza-eskola» ontan ikasten dabiltzanak. Alan eta guzti be, Ondarru'ko arrantzale gazteak, ez dot uste, eskuetan dauken aberastasun onegaz konturatu diranik. Irurogeita amar gazte, berez, asko dira, baiña Ondarru'rako ez dira naibeste.

Ikastea, estudixatia, ba-dakigu gauza nekeza dala, batez be, norbera «zaz» eginda dala, norbere lagunak naibeste dirogaz jolasean dabiltzan bitartean. Baiña norbere errian olako errestasunak euki ezkero, nik uste dot merezi dabela pare bat urtean nekatzea, etorkizunari begira, ta bardin itxasora joatekotan, beintzat.

Ia, ba, ondarrutar gazteok, itxasoan zeozer izateko ikastetxea or daukazue. Eldu gogor eta ez laga olako aukerarik eskuetatik juten.

J. GARITAONANDIA

Laukinitz

Pozik irakurtzen izan doguz Ozkin'ek Donosti'tik AGUR'era bialdu izan dituan arraunketako barriak. Emen be, egunetik egunera, zaletzen doaz inguruko lagunak. Ez da ba alperrik, asi Bermio'tik eta emen Mungi inguru onetaraiñoko gazteak arraunetan izatea Abra'ko taldeetan, eta ez dira makalenak izan be.

Ikusten da, Ozkin bere getariarrekin pozik dagola, eta ez da izan gitxiagorako, benetan gogor egin dabe aurtengo urtean-eta. Baiña emengoak be ez dagoz lo, ta orra zergaitik emengo mutillak ez diran makalenak, ba, beste pillo bat eroan ditue Portugalete'ko San Nicolas'en arraunlari izateko. Geienak Laukinitz onetatik eta or urreko Gatika'tik, mutil gordin indartsu ta argiak. Orretariko batek, lenengo ekiñaldian arraun bat apurtu eban, orain, neurriz tirakatzen eta azal ondotik erabilten ikasiko ei-dau, indar guztiok aurrerako ibilleran erabiltzeko.

Ta, egia ba'da diñoskuena, datorren Urtarrillean asita, Lujanbio bera etorriko ei-da, morrosko oneik egokitzera, arraunak daukazan ezkutuak erakutsi ta indarrak ondo erabilteko trebetasuna lortuarazteko. Lujanbio'ren irakatsiekaz, San Nicolas'ekoak gauza andiak egingo ei-dabez datorren urtean.

Kaiku be ez dago lo, or artu ditu beste gazte eder batzuk lengoekin batera, talde indartsu ta zurra osotzeko. Bizkaia'k beingoan, bide ziurra artu dau, ta aspaldian bigarren maillan ibilli ba'da be, emendik aurrera gorengoeri ortzak erakutsiko dautseez, Ozkin'ek esango leukean lez.

Orra ba, Ozkin, esan or, gipuzkoarren artean, ez uste izateko lo egin daikeenik emendik aurrera, anai bizkaitarrak or doaz euregaz, lagunartean eta anaitasun andienean, nor-nor dan erakustera. Ea ba, datorren urtean ekiñaldi ederrak izaten doguzan, eta irabazi dagiala onenak. Gora euskaldun arraunlaria!

Guazak olan doazala, naiko genduke ba, bai Plentzi, Bermeo ta Ondarru euren aldetik itxartu ta leiaketa oneitan sartuko ba'lira, ez diru galtzera, ez diru askoak jokatzera; geure anaiarteko kirol eder au barriz indartzera, munduari erakusteko euskaldunok ez garala ardauagaz bakarrik bizi!...

Ta, bitartean, or Kontxa'n eta emen Ibaizabal'en, ea besteok, begiratzailleok, alkar ezagutu ta benetan alkar maitatzera eltzen garan.

IBI - GANE

Nere Bordatxotik

Au da jende askotxoren pentsatzeko modua: Negarrez eztegula ari bear beti, euskera gora ta euskera beera. Al danik lanik ederrenak euskeraz argitaratzea komeni dala, euskera bera ezertarako aitatu gabe.

Gu ez gera uste ontakoak. Alik eta lanik ederren eta baliotsuenak euskeraz agertzea nai genduke, au bai, baiña zertarako lirake irakurlerik ezean?

Danok ez al gera esaten eta idazten ari gure izkuntza azkenetan degula? Oso gaixo dagoenak, eriotzarekin burrukan dabillenak, erremedioak bear ditu, al danik azkarren bere obera etor dedin eta erabat senda dedin.

Geu ez al gera izan okerrik geien egindakoak? Geu ez al gera pekatari izkuntzaren agoni larri ontan?

Geuri dagokigu, beraz, egindako pekatuz damutzea, ta oker jokatu gerala gizonki aitortzea, beste bide bat artuaz. Ortaratu bitartean derrigorra degu «euskera gora ta euskera beera» ari bearra. Zauriak gozatu bear dira emen, eta biarko utzirik beranduegi izan daiteke.

Eskerrak noizik eta bein berri pozgarriak artzen ditigula. Azkenekoa, dala egun batzuk, gure adiskide miña dan Pelai Orozko idazleak eman zigun.

Naparroa'ko Muskaria'n (Tudela, erderaz), ba da dantzari talde trebe, ospetsu bat. Talde onek eske ugariak ditu, andik eta emendik. Talde ontako dantzariak, Gipuzkoa'ra zetozen bakoitzean, lotsa-lotsa egiñik etxeratzen ziran.

Eriotzarekin burrukan ba'dabil ere, euskera ezpaita erabat illa oraindik, zorionez. Muskaria edo Tudela'ko dantzariei euskeraz itzegiten jendeak batean eta bestean, eta aiek erantzuten ez jakin. Txinatar edo japondarrak bezin arrotz etxetik lau kilometrora, Euskalerrian bertan.

Eta dantzari aiek gauza batez konturatu dira: euskal dantzak oso probetxuzkoak diranarren, eta on aundia egin lezaketenarren, ba dala aurreragoko zerbait: izkuntza! Ta, Muskaria'ko dantzariak bai arazoa benetan artu ere!

Zer dala uste dezute arazo ori? Kosta ala kosta, lenengo euskeraz ikastea, deitzen zaieten tokira lotsarik gabe agertzeko.

Bear dan tokian jo dituzte ateak; bear diran pausoak eman dituzte. Aurkitu dute euskera erakutsiko dieten andereiño bat: errenteriarra, ala bearrez. Andereiñoarekin bakarrik etzuten ezer egiten. Tokia barrunbea bear zuten ikastaroak aurrera eramateko. Ori ere lortu dute, zorionean. Muskaria'ko Aiuntamentua eskuzabal agertu zaie, ta nai bezelakoxe barrunbeak eskeiñi dizkie, alik azkarren euskaldun garbi biur ditezen.

Lerro auen bidez eskerrik beroena ager nai diogu Muskaria'ko Aiuntamentuari, eman duen ikasbide zoragarriarengatik. Dantzariei berriz, besarkada anaikor bana luza nai genieke.

Muskaria'ko dantzariak bezela gauza benetan artu ezkero, mirari aundiak egin genitzake.

Denbora askotxo da an euskera il zala. Emen oraindik ba du arnasa, ta gipuzkoar eta bizkaitar Aiuntamentu guztiak Muskaria'koa portatu dan bezela porta ba'litez, beste zakur baten zaunkak entzungo genituzke. Naparroa poliki-poliki euskalduntzen ba'zaigu, jokoa irabazia daukagu.

Gurea Izango da garaipena. Eztegu ezagutuko euskeraren eriotzik.

BASARRI

Euskera'ren alde

Amabi urte Ipar-Ameriketa'ra joan nintzala artzaiñen kapillau jarduntzeko asmoz. Nire biotza neurritik ganera poztu da, Euskalerri'ra biurtzean, Euskeraren alde gaur dagiguzan aalegiñak ikusirik:

Urteak mixiolari igaro dituezan mojak etxera biurtu ta Ikastoletan dakusdaz umetxoei Euskera irakasten, abadeak eta prailleak, baserrietan Euskera ikasten, urteak mixiolari egin ondoren. Osagilleak eta lege-gizon jakintsuak Euskera'gaz arduratzen ari dira.

Joan dan zortzi urtean, euskaldun emigranteentzako Banko Bizkaia'k euskerazko aldizkari ikusgarria argitaratu izan dau milloaka pesetak orretan ordainduta. Bost milla sendi, famili euskaldunek artzen izan dabee Australia'n Ipar-Ameriketa'n, Erdi-Ameriketa'n, Ego-Ameriketa'n eta beste naziño askotan Banko Bizkaia'k ordaintzen izan daben aldizkaria.

Nevada'ko Unibersidade'ko irakasleak aldizkari orreri buruz goralmen aundiak zabaldu zituezan Ipar-Amerika guztian zear, eurak argitaratzen daben News-Letter jasekoan.

Kalifornia estaduko, Bekerley Unibersidade'ko irakasle batzuek Banko Bizkaia'ren babespean argitaratzen zan zenbakia jasotzen eben bakoitzean, iru milla kopia eurak egiñak, Ikastola nagusi aretako ikasleen artean zabaltzen zituezan. Aldizkari orreri eskerrak, ainbeste ikasle, gaur Ipar-Amerika'n, Euskeratzaz ikaskizun sakonak egiten dabiz.

Aldizkari ortan izentatu ezin-aala personak lan egin dabe dubarik eta pozik, kanpoan diran euskaldunai euren errietako barriak emoteko: Ramon de la Mar, Eusebio Erkiaga, Muñoierro, Castro, Barrena, Aulestia'ko D. Emilio, Arrieta'ko txanburu zana, Miren Rementeria Boise'n, eta beste askok eundaka orduak ipiñi genduzan aldizkari ori pozgarrizko izan eikioen mundu zabaleko euskaldunai. Abade askok gartsu artu eben barriak biltzeko zeregiña. Eskerrak eurei, kanpoan gengozan euskaldunak egarriz itxaroten genduan aldizkariaren etorrera.

Zenbat euskaldunek aldizkari orren bitartez, mendietan, urietan, basamortuetan eta itxas-ontzietan ordu zoragarriak igaro dituez eta dituguz! Euskalerritik kanpora zenbatek euskeraz irakurtzen ikasi eben, saltsa ortan kokoteraiño sartuta ibilli gareanok dakigu. Bein baiño sarriago negar egienak badira Euskal aldizkari ori eltzean, irakurri nai ta euskera iñoiz irakurri ez ebelako, ain gatx egiten jakelako. Kanpoan jaioko Euskaldunen seme-alabaentzat, begi edegitzaille zan aldizkari ori, Euskera gauza bizia zala ondiño agertzeko ezaugarririk onena etxera eltzen jakeelako.

Ze atsegingarri izan jakeen nire begiei KILI-KILI'k darabillan arloa. Ipar-Amerikata'n Pedagoji sariketa baten, lenengo saria atera eban nire ezagun ta lagun batek esan eustan KILI-KILI'tzaz: «Nere ustez, gaur, Euskalerrian gauza ederragorik Euskerea'ren alde ezin leike egin KILI-KILI'k egiten dabena baiño».

Zelan lagundu geinkio Euskerea'ri? Bakoitzak ikusi bear ze bide jarraitu. Argitaratzen diran euskal-liburuak erosi, sariketak ugaritu, ume txiroai Ikastoletara joateko erreztasunak emon. (Orretarako Beka asko bear dira). Euskal aldizkari ta liburugiñeri zeure laguntasuna biotz zabalez eskiñi. Erriko barriak bialdu aldizkariei. Arpide barriak egiñ...

Ipar-Ameriketa'ko Gobernuak iru milloa peseta emon eutsoezan igez Boise'ko euskaldunai, euskeraren alde jokatzeko. Orretzaz gaiñera, aurten agindu dautsoe: «Zeuek zenbat batzen dozuen euskeraren alderako, beste orren beste Washington'etik bialduko jatzue».

ERREKALDE'TAR DEUNORO

IPUIÑAK...

Ume aroan ipuin egarri aundia izan oi da. Gaur artean len bezela, ikastolako gai sendoak itzi ta ipuin kontuak iruntsi eziñik alderdi guztietan agertzen dira umeak. Buruko argi gitxiren kontuak orretara daroez. Gero, gaztaroa etorri ondoren, tebeo ta abar guzur ordez, beste mito batzuk nork emon ta nork artu aski izango dira. Norbere barruan dagon garramura bidebagea asetuteko ipuiñak. Ta orretan doa, sarri, umearo ta gaztaroko bizitzea.

Alderdi batetik nauskeria ez da palta izango, baiña bestetik perretxiko ustelak jaten egongo litzakez egun guztian. Zenbat irakurgai ustel, zenbat perretxiko pozoidun liburu baltz orretan emoten ete jake gaztediari: Poztutearren... Ixiltzearren...! Olan bizitzeak ardura gitxiago emongo dautse. Baiña, olangoak ete dira guztiak. Ez, ez olakorik! Zentzundunak ba'dira, ta olakoak tegia izaten dira.

Berez, gizonaren burua argi-zalea da. Alantxe eginda dago, egiagaz bizi izateko. Guztiak dabe dei ori barrutik. Geure barru-barruan dagona da ori, ta naita gure maltzurkeri guztiak, gora-gora jaiki, egiaren deia ilterik ez dago. Nastau egingo dogu, baita illundu be, baiña izatearen otsa garrasiz jaikiko da egi billa. Bere lekua nai dau, ez edozelakoa, garbi ta indarsua baiño.

Egiz, gizarte ontan «mitoak», ipuiñak ta bizia, garbi itxuraz jarri nai dabenak, asko agertu dira. Mitokeri edo ipuinkeriok, iñoz, ez dira izan atsegin, ta mesede baiño kalte geiago egin izan dauskue edonori. Ori dala-ta, sarri izan gara itz egiteko eskubiderik bage. Ta egiak estaldu ezkero, gizonen bizitzak, errez ondatzen dira. Ortik etorri diran samiñak, larriak izan dira, ta iñorentzat ez dira opagarri.

Bizitzari kalte egiten dautsen txarkeri guztiak birrindu bearrekoak dira. Ta len, mitorik, ipuiñik, larregien be iguingarri egon direla-ta, egundoko txibitea atera dabe «gaurko» izena norberarentzat bakarrik aukeratu dabenak. Olako maltzurkeriak gizartetik kentzea, ez dago txarto, baiña bildur naz, «gaurkoari» txibitea, jaiotzan bertan emon bearra izango ete dan.

Bestearen diruak pillatzea, iñor zapaltzea, auzoko jendeei, eurei dagokiezan eskubideak eta lurrak kentzea, zigorgarriena da Kristo'ren legean. Gaur, zapaltzaille direnak, biar zer ikusi bear ete daben, bildur naz; Kristo'ren irakatsien aurrean guzurra egi ezin biurtu daiteke, ezta lapurretea zuzentasun, ez iltea bizitza, ez ostutea eskubide...

Lengo «mitoak» kendu bearrekoak izan ziran. Mitokeriak egirik ez dau bere sustraietan eta jokabidetan. Gizonak sorturiko ipuinkeriak ziran. Baiña, gaur, zer? Argiaren, gizontasunaren, eskubideen aldi ontan argia ta gizontasuna, sendo bizi al dira? Asmakizun barriak egitea ez da erreza gizonen artean, ta gizonok ostera, lengo izate berekoak gara.

Egizko argia artzen ez dan bitartean, gizonkeriak egiten dira. Jaungoikorik ez dala bear... Asmakuntza barria ez da. Ori betikoa da. Guri dagokiguna da, langille gizontsu legez lanaren bidez bizi izatea Kristo bezela. Ta aundikeria ta zapalkeria kendu bear direla-ta, errez errez, agertzen dira mito barriak.

Ipuin-ipuiña dirudi ondorengo onek. Jaungoikorik ez dagola, errez, esaten da. Zabalkunde orreri indarra emon nai jako. Baiña, jokabide ori daroenak, zer dala-ta, dabiltzaz konbenturik konbentu ta abadetxerik abadetxe. Zuzenbidearen billa? An barruan itzartu barik dagozenak atzipetu ta eurak nai dabena lortzen? Bide orren bitartez euskalerri ona nastau ta jendeak eukan erri-bide ona kentzen?

SOLOZABAL'TAR PAULIN

ZER EDO ZER

Alec Guinnes'en katoliku biurtzea dala-ta

Izparringiak erdi-egi asko ipinten dituela guztiok dakiguna da. Alec Guinness, antzerkilari ospetsuenetarikoa katoliku biurtu zala egia da, eta «Doménica del Corriere»n Aita Fabbretti prantzizkotarrak onantxe azaltzen dau: —Alec Guinness'en semea bost urtedun zala «polio» gexoak artu eban. Ibilteko ez zan gauza ta, txirrinkadun burditxo baten ibilli bear izaten eban. Aita samintasunez beterik egoan. Erroma'ko kaleak-zear, «Corilona» pelikulea egiten ziarduala. Osagilleen alegin guztiak alperrekoak izan ziran. Itxaropen guztiak galduta egozan.

Egun baten bere semearen zoritxarraz oldozten kalean yoyala, eleiza baten sartu zan ta otoitz egiteko gogoa etorri yakon. Bera ez zan katoliku, baiña ainbeste (330), Erroma'ko eleiza baten sartu zan. Antxe al ebanez, bizitzan ainbeste buru-auste emoten eutsozan semearen alde Yaungoikoari eskatu eutson. Pelikulea amaituta London'era biurtu zan. Bere seme Mateo'k egazkin-geltokian itxaron eutson. Ondiño burditxoan ebillen baiña erreztasun aundiaz erabillen. Aste batzuk geroago beste edozein ibilli ta antziketan egiten dau. Osagilleak esan dautsoe yakidiak ezin azaldu leikela osatze arrigarri ori. Eta olan semeak osasuna ta aitak ziñestea yaritxi ebezan.

Izparringiak esan dabena egia da baiña oin ogei urte gertatu zan. Alec Guinness'en semeak 40 urte ditu ta osasun ederreko seme biren aita da.

Yaungoikoaren bideak era askotakoak dira izan be!

GAMA

AGUR

III URTEA
64 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - LOTAZILLA - 2

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Euskerea Beti

Bost edo sei milla urte ei dira gizonak berba egiten ikasi ebanetik gaur arte. Eta, Barandiaran jakintsuak diñonez, euskaldunak berton jaioak ba' dira, iñondik etorri bakoak, euskaldunak eurak egin dabela euskerea esan bear ei dogu. Izan dira, orregaitiño gizon burutsuak ain izkuntza jakintsua sorrerazo daben gizonak!

Baiña goazen euskerearen kondairan ziurrak diran gauzetara. Euskereak barruan ditun aberastasunak aztertzen ba'doguz, gauza ikusgarriak aurkituko doguz.

Lenengo artu-emonak iberoakazkoak izan ei ziran. Izkuntzalari zarrak iberoen eta gure izkuntzearen alkarren antz aundia egoala esaten eben. Orrelan, esaterako, Menendez Pidal'ek bere gaztaroan. Gero eretxi au ez da onartua izan eta ez dauka jarraitzaillerik, Menéndez Pidal berak be itzi eban.

Iberoen izenak berak be euskereagaz zer ikusia ba dauka. Iberoak ibai ondoan bizi diranak esan gura dau, eta errekearen izen zarra **ibai** *zan. «Ebro» ibaiaren izana be ortik sortua ta euskerearen zusterra daukana da.*

Gero zeltakaz izan ziran gure artu-emonak. Oneikaz baterako itz asko daukaz euskereak. Tokiizenak alde batera itzirik, kontuan artu daigun **Landa.** *Itz eder au, zelten izkuntzeak eta gureak euken, eta esangura bardiñagaz:* **landa** *erri bat bizi dan lurraldea da zeltentzat, eta gaur guretzat lurralde txikiago bat.* **Landa** *itzak laterri askori izena emon dautse: Ice-land-***Islandia,** *Eire-land-***Irlanda,** *Fin-land-***Finlandia,** *Angle-land-***Angla-terra, Landes, Jutlandia**... *Zeltakandik artuak ei dira, baita: prakak (gazteleraz: braga), alkondara, ezkerra (ortik gaztelerara* **izquierda,** *sorginkeriagaitik* **sinistra** *alde batera itzita),* **vaica** *be gure* **bea'***gaz batera dator, eta gazteleraz* **vega** *ortik sortzen da.*

Baiña euskerea geien aldatu ebenak Erroma' tarrak izan ei ziran ei ziran. Oneik Iberia'ko beste izkuntza guztiak il ebezan, eta euskerea be asko aldatu eben, baiña iltea ez eben lortu.

*Latiñetik artua ei da aditz laguntzailleagaz egiten dan aditz jokoa. Lenago aditz guztiak laguntzaille bakoak ei ziran: Kerta***tun habeo-***gerta***tu dot.**

*Latiñetik artua ei da, baita, atzizki moltzo bat: sagi***tarius,** *pelo***tari;** *odio***sus,** *gorroto***tsu.**

Baiña, batez be, iztegia ei da gerkeratik eta latiñetik geien artu doguna. Gerkeratik erlejiñoizenak, ba leiteke lenengo latiñera ta gero euskerara, batez be eleizetako izkuntzalarien bidez.

Batzuk jakitunen latiñetik etorriak dira. Esaterako: Cella-gela, certum-gertu, certatun-gertatu, angelus-aingeru, pacen-bakea, parcere-parkatu, legem-lege, regem-errege, rotam-errota, ferramentarium-erramentari, molina-boliña, fikum-iko, tipula-kipula, kerisia-kerixa, collum-goru, verba-berba, forma-orma, formacea-ormaza, gula-gura...

Beste batzuk Erroma'ko erri zeak itz egiten eban eratik artuak dira, esaterako: coelum-zeru, capela-txapela...

Gero latin ori galdu egin zan, baiña oindiño Erroma-antzera itz egiten ebenak be sartu ebezan gure izkuntzan euren itzak, batez be Aragoi aldetik etorriak. Esatarako: ruego-erregu, espillu, maillu, akullu, teilla, campana-kanpae, catena-kate, dinero-diru, asmo, amatau, sorgin (sors)...


Arabeak be izan ebezan gugaz artu-emon batzuk, baiña, gasteleratik artutako itzak alde batera itzi ezkero, esaterako **alkate,** *eurakandik artutako itz bat baiño ez dot aurkitzen euskeran:* **Albaitera,** *abereen osagillea.*

Ainbat itz geiago izango dira euskereak artu ditunak, baiña ez gure egunetan batzuk artuko leukezan beste. Euskereak bere barruan itz barriak sortzeko indar ta adore berezia dau eta, orregatik, laterri arteko itzak onartu bearko doguz, baiña euskereak bizirik irautea gura ba'dogu, barrutiko biziari indarra emon baerko jako.

Zelakoa izango ete da geroko euskerea? Unamuno'k, laster il bear ebala, esan ei eban: Basagizona errira datorrenean ilten dan lez, basa-izkuntza au jakintzara sartzerakoan ilgo dala iñoan. Eta, antzera, Pio Baroja'k be 500 bat urte iraungo ebala baserrietan esan ei eban. Ez ziran oneik euskera-zale aundiak.

Gure aldetik beintzat eutsiko dautsagu. Arerioak ugari ditu, guzurrezko seme-alabakandik eta erbestetik, baiña geu beintzat ez gara izango «eutanasia» egingo dautsagunak.

AGUR



Biar Xabierrak - Euskera-eguna

XABIER DEUNEZ

Izkuntzea, amaren magalean lenengo, ta auzokoen artean ondoren ikasten dogu; erabilliz eta alkar-aitu bearrez. Or ez da bakoitzaren nairik agertzen, datorrena, orrela dalakoan artzen dogu, ta ez alegin ezta zaletasunik ez da gure aldetik agertzen.

Gero, ta ez beti, datorkigu obeto itz-egiteko naia, ta ondoren, izkuntzearen garrantzia argi ikusiko dogu, ta ikasten jarriko da gizon gaztea, sarritan zarragoak, gurasoak-edo, eraginda.

Bultzakada au, era bitakoa izango da: biotzetikoa edo sakeletikoa. Ba-liteke jakingura utsez be ikasi naia sortzea, ala ta be, biotzak edo sakelak bultz daragi.

Biotzakin «zerbait» maite izaten dozu; bera ortxe dagolako, dalako, ber-bera maite dozu. Sakeletik «zerbait» bearrezkotzat izango dozu, obeto bizi-izateko, aundiago agertzeko, garaille izatera eltzeko.

Biotzarentzat, «zerbait» ori ber-bera da, ta ez beste inguruko, alboko edo antzeko ezer; zeure maitasun orren eragiña ta izate osoa da. Sakelakin «bear dozula» ziñesten dozun zerbait ori, ez dozu maite «berez», zure zerbaiterako bearrezkoa dozulako baiño.

Giza-seme jatorrak, biotzakin maite dau bere izkuntzea, ta besteren bategaitik arduratzen ba'da sakeletik diardu emen. Biotz-bakoa ba'da, berea ososoan laga ta ingeles edo beste erderaren bat ikastera joko dau, sakelak obetzat daukalako.

Seme-jatorrak, bere izkuntzea «bera danez» maite dabenetik, beronen muiñetatik jota, edertzen aleginduko da. Ez yakoz atsegin erderakeriak, eta gitxiago ortik ba'letor berearen ondamendia.

Berekoia dan semeak edo semetzazkoak, ardura gitxi izkuntzarengan «bera danagaitik», ez dau ezartariko maitasunik onengan. Ori, alkar-aitzeko tresna bat besterik ez dau; naastatu naiz aldatu min gitxi bere biotzean.

Euskaltzaleak, euskerea maite dau «bera danez»; itsusi naiz eder. Berea dau, ta dan lez maite dau, ta berakin bat eginda gaurkotu, aunditu, apaindu ta jakintsu egiteko aleginduko da. Bere-beretik daukan ederrena ta jatorrena artu ta zabalduaz.

Euskerea gure erriaren izkuntzea da, millaka ta millaka urteetan, ez dau onek bere biotzean ezetara be onartuko tresna uts lez erabiltea bere senaren oiñarri maitagarri ori. Eta, onean ezin ba'dau, ostikoka, atzamarka naiz atzoskolez burrukatuko da sakel-gizonen aurka; are ta geiago, irabazi tresna lez ez-eze, zikinkeri, maltzur-joko ta erri-ondatzetarako marrotzat artu dabenen aurka.

Ta au dagianak biotzetik dagi, gizon danez eta euskalduna izatez.

BEIZTEGI'TAR JON

NERGARGUREA

Tolosa'n, GOIZ-ARGI'ko lagunekin izan dogun billera ederretik etorri ta berealaxe asi naiz lanean. Billera aretako zertzeladak urrengorako utzi, patxadaz egin naian, eta lendik erdi-gertu neukan gaiari oratu dautsat, au da: Z-Argia'k oraintzu argitaratu dun izen-buru bardiñeko editorialari. Lerroz-lerro irakurri ondoren, oso-osoan onartuko genduke, erakutsi nai dun gogo ona guztiena ba'litzake... baiña gure ustez, naizta borondate onenakin jokatzen ba'dabe bere, alkar-izketa batera dei egitea ez da naiko «negargurea» emoten dauskun «kipula» ori betiko baztertzeko. Nere ustez, eta ba-liteke errututa egotea, eztabaidak, burrukak eta anai arteko ikusi-eziñak amaituko ba'dira, Euskal-erriarentzat ain kaltegarri diran jainkotxokeri guztiak azaldu bear doguz eta eguzkiaren argi bizi-bizipean bear dan bezela aztertu; bildur barik eta ainbat ariñen. Antzarrarena egiteak, egopean burua gordetzeak ekarri gaitu giro edentsu onetara... ala ez?

Maitasunezko itz politak ez dabe ezer zuzenduko, bear ba'da, beste alditxo labur baterako estaldu arren. Ez genduke olakorik nai, ta zoritxarrez, ez dago, len esandakoa izan ezik, beste urtenbiderik: Argi ta garbi aztertuz, sustraiak moztutzea. Sustrai orreik billatzen asiko ba'gara, urrunera jo bearko dogu, baiña gure arteko burrukak noiz eta nun asi ziran ba-dakigu, eta jakin nai dun irakurleak guk aiña erreztasun izango leuke buru auste larregirik gabe: euskaldunen artean «pelipekeria» sortu zan egun ber-bertan.

Zer dok ori? Itanduko du norbaitek. Ba, aurpegi askorekin baiña elburu bakarraren billa, esku ezagun batzuen gidaritzapean, euskal soka-dantzan eta euskal soiñekoz apaindurik, gure artean sartu dan errizaletasun eza. Argiago ta obeto esateko, euskereagaz eta euskereari lotuta dagozan tresna, erankunde ta ikastola batzuekin baliatzen dan euskalzaletasunaren betiko etsaia. Olakoak uxatzen gabiltzanok, «sorgin» billa gabiltzala? Bai zera!

Begira zure ingurura, begira zure errira, begira Arrasate'ra, begira pasiotarren ikastoletara —zorionak, esnatu diralako!—, begira zuen gazte-lagunen iritziak zelan aldatu dituen —eta noren probetxurako!— eta esaidazu amesetan ete gabiltzan! Ez jaunak!

Zergaitik? Noren erruz? Guztiok gizarte barri bat nai dogu, bardindua, guztion lanetik ondua, diruaren morroitzatik askatua, euskal kutsuzkoa, ez baiña betiko erbestetar sal-erosle botijerori menperatua. Zintzo ta maitekor itz egiteko ordua eldu dala? Bai pozik! Baiña euskalduntasunaren onerako jokatu nai dabenekin..., ez besteokin. Beste orrein artean mutil on asko dabillela? Ez goaz olakorik ukatzera, baiña morroitzan jarraitzen daben bitartean, itsu edo gor izan naian, ez dago alkar-izketa girorik. Beraz, obe dogu ainbat ariñen aldendutzea ta bakoitzak bere baratzeko lorak al danik onduen gordetzea; zeintzuk ederragoak eta erriarentzat obeak izango diran, geroak, etorkizunak erakutsiko dausku... ez baiña danok nasteborrastean ondamendira eroateko arriskoan bideratu.

Alkar-izketea? Bai orixe, ez baiña «Orixe»ren EUSKALDUNAK'gaitik «apoteosis del jebismo» diñoanakin, «buru-zapal» kume erdelzaleakin. Ikastolara joan bear dogun «analfabetoak» garala? Ikasten ala irakasten, «lagun»?... Ezta euskaldunak eta euskotarrak berezitzen dituan euskaltzain «jakitunarekin» bere. Euskaldun asko dagoz «per accidens» diranak... eta orreik euskotarren gaiñetik agintzen? Tira, tira mutillak!, belarria argi erakutsi dozue ta orain ba-dakigu sortzez eta biotzez nor nor dan. Orain ez gara arritzen gure gizon aundi bateri «madarikatua» deitzean... odolean «virusa» ala?

Z-Argia'k alkar izketea nai du? Baiña erantzun beiz lenengo itandu batzuk: Noiztik eta zergaitik lorrindu da Euzkaltzaindiko giroa? Nortzuk dira umeen eziketaren jaun eta jabe, au da: ikastolako oiñarriak jarri dear dituztenak? Noiztik eta nortzuk sortu eben anai arteko burruka negargarri au? Nortzuk zoritxarrezko ikurra dan «h» ori sartu erazoten alegintzen dira?

Guk bere izango doguz gure akatsak, ez gara, bear ba'da, pekatu bakoak, baiña ez gara gogortasunera gogoz joanak, giroak eramanak baiño. «Gogortasunari gogor», esan eben norbaitzuek eta guk bere ori onartu gendun, ez baiña gustora... erriaren abotsa guztiz ito ta ixildu baiño len zerbait egin bear zalako baiño.

Jainkoari esker, gaur, «eguzkiaren argitasuna basotik urten da...» abestu geinke! Ta ez dago laiñopetzeko indarrik!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Oker Ari Zerate

—Goiztar zoazte gazteok —agurtu zitun Ama Euskerak sail bateko gazteak— Ernio-ra'ko asmotan?

—Sí, abuela, vamos a Ernio.

—Zer da ori? Erderaz euskaldunak? mendigoizaleak?

—Ez dakite euskeraz gure lagun guziak.

—Ta euskaldunak dirala, al diote oyek?

—Si, amona; ez jakin euskeraz, baiñan gu euskaldun puntako.

—Ederki dago orixe! Euskaldunak euskeraz itz egin bear du.

—Ba-ditugu makiña bat lagun, euskeraz ez jakin arren, beste asko baiño ausartigo arpegia ematen dutenak gure gauzen alde.

—Jakizute ba, gazteok, gure aberastasun aundiña ta pitxi ederrena, ez dala gaur bizi geran lurralde au bere mendi, ibai ta zelaiaz jantzia, zuen zabarkeriaz erdi illean daukazuten euskera baizik. Orregatik sayatu bear duzute danok euskera gaxo ori berpiztu azten; orixe duzute egitekorik aundiña.

—Baiñan zein arrayo zera zu, amona, guri nola jokatu bear dugun erakustera etortzeko?

—Nor naizen?... Ara ba: Ama Euskera nazute ta nere seme alabai erakustera etorri naiz, nola jokatu bear duzuten.

—Iñoiz jokatu izan al dira gure aurrekoak gaurko gazteak baiño adoretsuago?

—Iñoiz?... Bai gazteok, bai; len ere jokatu izandu ziran zuen aurrekoak adoretsu Euskalerriaren alde.

—Euren bizia arriskuan jartzeraiño?

—Makiñabat euskaldunek galdu izan dute bizia gaur baiño lenago Euskalerriaren alde; baiñan alperrik ixuri zuten euren odola!

—Alperrik ixuri zutela euren odola?

—Bai; aiek eutsi zioten euren lurraldeari; baiñan ondorengoak sartzen utzi zioten pixkanaka erderari beren lurraldean, eta orrela joan ziran galtzen Euskalerriaren zati eder ta galantak.

—Ba guk eutsi ez ezik gaurkoari, Ama Euskera, lengoak ere itzuliko dizkiogu.

—Zuek... Matxinadak sortuaz? Ez dut berealakoan, orrela jokatzen ba'duzute, nere burua ikusiko Euskalerri guziko erregin. Mutillak: bide ortatik ez duzute iñoiz euskaldun biurtuko len euskaldun izandako lurraldea.

—Bildurrez, aidean jarri ditugu ba batzu-batzuk...

—Ez damakizute bide ona. Orrela ez Euskalerri berri bat, baizik zeen buruentzat zigor ta espetxeak iritxiko dituzute.

—Pozik asko joango gera gu espetxera!

—Begira gazteok: Palestina'ko askatasuna iritxi baiño len, sayatu ziran ebertarrak euren izkuntza zarrean mintzatzen. Bide ortatik jo dute katalanak ere; oyek ez dituzte sortzen matxinadak; baiñan sayatzen dira egi ta benetan zar ta gazte, aberats ta beartsu, eskolatu ta eskolatu gabeak ,danak katalanaz mintzatzen. Ikustekoa duzute oyek daukaten ardura, katalan guziai euren izkuntzaz mintza azteko. Ez euren etxe ta billeretan bakarrik, baita kale ta denda, jantoki ta ardadegitan, eta gizon ta emakumeak ontarako edo artarako biltzen diran leku guzietan.

Ez erri txikitan bakarrik, baita uri aundiñetan ere; zeok ikusi dezakezute bai Barzelona, Tarragona ta beste uri aunditan.

—Ez al duzu, ortaz, ontzat ematen gure jokabidea, Ama Euskera?

—Ez semeok ez; bearregoa duzute euskaldun jator izatea. Ortarako ikusi dezatela bai ego ta bai ipar aldeko agintariak, benetan maite duzutela, euskaldun biurtzen zaituzten izkuntza, ta euren euskeraren aurkako erasoaldi guziak, ez dizutela euskera utzi azi ta gero ta adore geiagokin eutsi ez-ezik, euskera ori zabaltzen asi zeratela euskalerri guzian. Ordun makurtuko dituzte euren buruak zuen aurrean ta egingo zuen esana.

—Puskatean ixoegin bearko dugu, ortaz, Ama Euskera...

—Indarka matxinadak sortuaz, lenago iritxiko duzutela uste al duzute?

—Uste ortan jokatu dugu orain arte.

—Ez ba semeok. Jokatu zazute gizonki danok, zar ta gazteok; ikasi euskaraz ez dakizutenak, ta dakizutenak, berriz, jardun beti ta leku guzietan euskeraz. Auxen izan bedi zuen asmo bakarra: Itzegin dezatela euskeraz, euskaldun odola zaiñetan daramakiten guziak. Izango al duzute orretarako kemenik?

—Izango ez dugu ba Ama Euskera kemen ori! Emendik aurrera euskeraz jardungo gera ta bestiai jardun aziko diyegu.

—Nork? Zuek emakumezkoak?... Orratik ikustekoa izango da, ain errez erderara jotzen duzuten emekumezkoak, euskeraz bakarrik mintzatzen entzutea.

—Ba emendik aurrera ez gaituzute geiago erderaz entzungo!

—Ez e?... Ikusiko dugu, betetzen duzuten ala ez, Ama Euskerari emandako itza.

—Benetan, orrela izango da!

—Sayatu, gazte maiteok, asmo eder ori aurrera eramaten ta euskera bakarrik enzun dedilla Euskalerri osoan. Agur gazteak.

—Agur.

RAMON MURUA

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asterako onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

KEREXETA'REN 22'GN. EUSKAL LIBURUA DALA TA

Gizon batzuk nekatu-eziñak edo dira: beti bearrean, lan bat amaitu oudukoxe beste bat esku artean darabillenak. Olangoxea dozu gure Jaime Kerexeta abadea bere: asti bitarte guztietan euskal arazoetan sartuta, bere etenbako lanak frutu onik eta ugaririk emon dausku. Ona emen azkenengoa: «GURE SALBAZIÑO-EGINTZA: ALKARTASUN BARRIA». 200 orrialdetik gorako liburu mardul au, Kerexeta'ren euskal liburuen artean, 22'garrena (Ogeta bigarrena, bai!) *dogu. Elorrio'ko idazle onen libururik geienak lez, au be itzulpena da: Bilbo'ko ASCEA Alkarteak erderaz argitaratutako liburu irakurgarriaren euskal itzulpena, Bizkai'ko euskeraz. Liburu onen leenengo zatia —ALKARTASUN ZAARRA— leendik geunkan Bizkai'ko euskeraz, M. Zarate abade gazteak euskeratuta. Oraingo au bestea baiño sendoagoa da; eta Itun edo Alkartasun Barri osoaren laburpen egokia eskeintzen dausku, bai dotriña umeentzat (11-12 urtetik gorakoentzat) eta baita edozein kristiñau eldurentzat bere. Gai osoa iru zati nagusitan dago banandua; eta, zati bakotxean, ainbat ikaskizun (24, guztira), euren «Itaunketa», «Egiteko» eta «Otoitz» ta guzti...*

Nik emen ez dot, baiña, Kerexeta'ren liburu barri onen azterketa zeatz eta sakonik egin gura. Itzulpen arloan aspalditik erakutsi dausku bere trebetasun txalogarria, Jaungoikoaren Berbea euskera argi, txukun, zeatz, garbikeria bako garbian biurtuaz.

14 urteren barruan 22 euskal liburu argitaratu dituan idazleak zerbait esateko eukiko dabelakoan, beragana joan najako, itaunketa bat aurrean dodala. Bai berak pozik erantzun bere! Entzun, AGUR'en irakurleok, Kerexeta'ren berbok:

—Noiztik dakizu euskeraz?

—**Umetarik.**

—Eta noiz asi ziñan euskera ori sakontzen, lantzen?

—**Guda-aurrean asi nintzan gramatikaz ikasten, aldi aretako aldizkari ta liburuak irakurten eta aztertzen, arakatzen.**

—Zeintzuk izan dozuz maisurik maiteenak, euskal arloan? Zeintzuk leen? Nortzuk gaur?

—**Maisurik maiteenak, leen eta orain, Azkue ta Altube, Orixe, Lizardi ta Lauaxeta; eta, geroago, baita Luis Mitxelena ta Zaitegi be. Baiña, beti be, «bizkaiera osotua» izan dot aurrean, aitatu dodazan leenengo maisu biak eredutzat arturik. Gu, abadeok, erriarentzat gara, Bizkaia'n Bizkai'ko erriarentzat; beraz, emen bizkaieraz egin bear.**

—Olerkari lez agertu ziñan euskal idazleen artean: or doguz zure «Orbelak» eta «Bitargi». Zergaitik ez dozu arrezkero olerkirik argitaratu? Egin, egiten al dozuz gaur bere? Noiz argitaratzeko?

—**Olerki liburutxu biok argitaratu nebazan, bai (1958-1959); baiña gero erlejiño-gaietan asi nintzan, eta arrezkero bide orri jarraitu dautsat ia oso-osorik. Nire gogoaldietan, orraitiño, egin izan ditut eta egiten be bai olerkiak oraintze be, egunak orretarako emoten daustanean.**

—Zure euskal libururik geienak itzulpenak dira; zergaitik orrenbeste itzulpen? Zer dala-ta ia danetan erlejiño ta Biblia-gaiak?

—**Gure libururik sakonena ta indarrik geien daukana, Biblia dala deritxat. Itzulpen bearrean aurkitu izan gara gure elizetan eta eliztarren artean, eta emon egin bear! Zer egin besterik, abade nazan aldetik, utsune ori ikusi neban ezkero edo ikusi-azo eusten ezkero? «Eguneroko Meza» liburua egiteko, barriz, Iturraran eta Retolaza abadeak egin eusten bultza. Eskerrak, bada, adiskide bioi, baita Aita Onaindia'ri be, beronek egindako zati batzuk neure idazkeratara aldatzeko baimena emon eustalako. Orrexegaitik jarri neban beronen izena nirearen ondoan.**

—Euskal arloan, zer egiten dozu zaletasunik bizienaz?

—**Edozer; egiteko esaten dausten edozer.**

—«GURE SALBAZIÑO-EGINTZA: ALKARTASUN BARRIA» 22'gn. liburua dozu; beste bi bere irarkolan ei daukazuz; beraz, laster «Zidar-ezteguak» (25 liburu!) ospatu bearko dozuz. Zein izango da 25'garren ori? Noizko?

—**Luis de Castresana'ren «El otro Arbol de Guernica» liburuaren itzulpena izango da, J. L., nire 25'garren liburu ori. Gabonetarako nintzan amaitzeko, eta amaitu be egingo neban, beste arazo batzuk etorri ez ba'yatazan. Edozelan be, Pazkoetarako argitaratuko dala uste dot.**

—«Heraldica» gauzetan be oso aitua zaitugu eta ainbat aldiz agertu dozu zaletasun eta jakituri ori. Aurrerantzean bere ekingo al dautsazu arlo oni? Zergaitik?

—**Antxiñakoa da «Heraldica» edo mazmarroai buruzko nire zaletasuna. «Euzko Gogoa» aldizkarian agertu ziran leenen nire lantxoak orretzaz, euskeraz, jakiña. Orain, barriz, «DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO VASCO» erderaz argitaratu dodalako, batzuek asarre-edo egin dauste. Baiña, orrelako lana ezin argitaratu daiteke gaur egunean euskeraz. Iñok ez eustan euskeraz egiteko esan; eta iñok esan ba'leust, euskeraz egingo neban. Beraz, argitaratzaillearen gogoa bete bear. Mazmarro-gai oni buruz, beste asmo andi bat dogu, baiña ez dakit aurrera eroan aal izango dogun.**

—Zure euskal lanak BIZKAIERAZ idatzi dozuz (bat baiño geiago gipuzkeratu be egin dautsue). Zergaitik olan? Maite al dozu Bizkai'ko euskerae?

—**Leen esa dautsudanez, nik bizkaiera maite dot geien, «bizkaiera osotua». Zergaitik? Nire lanak bizkaitarrentzat diralako, albait errezen ulertu daistezan. Orixe berori egin dau Zugazti abadeak nire lan batzuk gipuzkeratzean: gipuzkoarrentzat erraz-erraz egin, gu —barriro esan— erriarentzat gara-ta, eta ez Tokio'ko Unibersidadeko ikasleentzat.**

—Eta, amaitzeko, esan eiguzu: ainbeste «umetxoren» artean, zein dozu maiteena, kuntxuena? Zergaitik?

—**«SALMUTEGIA», bear bada. Zergaitik? Guztietarik astiroen egin nebalako. Gaiñera, birritan egin neban lan berbera: leenen, «Biblia de Jerusalén» deritxon liburutik artuta, eta gero, jarraian, erderazko Salmutegi ofizialetik. Eta azken au izan zan argitaratu nebana, eta Zugasti jaunak gipuzkeratu eustana.**

* * *

Orra or gure alkarrizketa luzearen barri. Kerexeta jaunak argi ta garbi agertu dauskuz bere euskaltzaletasuna ta idazle-jokabideak. Ainbat lan mesedegarri egindako gizonari ezin geure txalo berorik ukatu, eta aurrerantzean be, oi dauan gartsutasunaz, lanari ekiteko eskatu, euskaldunon onerako.

«Ura zan gizona, ura!», diñosku D. Agirre'k Joanes'egatik «Garoa»n. «Au dok au gizona!», esango neuke nik, Kerexeta'ren aurrean, arriturik eta esker onez. Izan bere, Bizkai'ko euskaldunok izan ete dogu, gure aldi onetan, Kerexeta lango maisu andirik? Ez ete dogu berau gure «klasikurik» gorenengoetarikoa? Sarritan erabilten doguz aotan beste izen batzuk: Axular, Leizarraga, Moguel, Añibarro, D. Agirre, Ki rikiño... ta beste olango asko. Ez dautset nik olangoei euren izen onik kenduko. Ez orixe! Baiña bein baiño geiagotan esaten dautsat neure buruari: «Gaur eguneko euskaldunontzat (Bizkai'koak bakarrik ditut orain gogoan), ez ete da Kerexeta guzti orreik baiño mesedegarriago izan? Edo, beiñik bein, ez ete dogu gure belarrietan Kerexeta'ren euskera sarriago entzun eta gogo-biotzetan barrurago sartu? Azken urteotan, elizara doan euskaldunak zenbat bider asetu dau bere gogoa Kerexeta'ren euskera argi, garbi ta zeatza entzunaz! «Eguneroko Meza», «Alkartasun Barria», «Salmutegia» ta beste antzerako liburuak egindako mesedea, nok neurtu?

Zorionak, biotz-biotzez, Jaime, zure liburu barri onegaitik, eta eskerrik asko! Aurrerantzean be artuko al dogu zure aspertu eziñeko lanegitearen frutu ederrik!

EUK

IDAZTI BARRIAK

Izena: Gure Salbaziño-egintza (Alkartasun barria)
Egillea: Ascea-Bilbao (bigarren argitarapena).
Urtea: 1972.
Euskeratzaillea: Kerexeta'tar Jaime.
Irar-lantegia: Gráficas ESET.—Gazteiz.

* * *

Pozez jakin dogu ASCEA oindiño bizi dala; motel, baiña bizi.

Gogoan doguz Villarias kalean egiten genduzan batzarrak eta lanak, baita Alkartasun zar eta barriko edesti au ateratzeko be. Baiña ordurik ona urteak igaro dira eta orain, euskeraz, gure eskuetara frutu eldu bat datorku. Lentxuago euskeratu zan Alkartasun zarra, eta orain Alkartasun barria agertu jaku.

Izatez umeen kristiñau ikasbiderako da idazti au, baiña elduentzat be irakurgarria da. Zergaitik? Edesti deuna gaurko eraz ezaltzen daualako. Ba egoan ori egin bear benetako bat. Eta Biblia-aldetik ziurtasuna izan daiten, Ubieta jauna, gai orretan oso jakituna, izan da laguntzaille.

Euskereari begiratzen ba'dautsagu, lenengo Kerexeta dala euskeratzaillea ez dagigun aiztu. Nok ez dau gure eleizetan Kerexeta'ren euskera garbia ta gozoa entzun? Eta liburu onetan darabillena ez da txarragoa, ederragoa ta argiagoa dala ezin ukatu. Benetan langillea ta arduratsua gure Kerexeta.

Gero apaingarri politak be ba ditu liburu onek, margo gorriz, baiña ez ain ugari.

Itz bi ta sarrera baten ondoren, iru zatitan dator liburua: lenengoa, Kristo'ren etorrerea; bigarrena agiriko bizitzea ta eriotzea; irugarrena, Eleizea salbaziño-egintzea egiten. Amaitzeko, Alkartasun barriko kronoloji-arazoa ta iztegitxu bat.

Liburu au Ipar-Amerikan argitaratu ei dabe, baiña zelako argitalpena eta zelako apaingarriakaz! Gu txiroak garan lez... Baiña ez gaitezan ikaratu, barruan dakarren mamiña, bai Ameriketakoak, baita onek, bardiña da. Irakurteko eroapen geitxuago bear

* * *

Egillea: Solozabal'tar Paulin.
Izena: Gizadian.
Urtea: 1972.
Irarlea: Gráficas Bilbao.—Gordóniz, 28.

Paulin, elertiaren kondairan, ezaguna dogu. Antxiña lotsati agertu jakun «EGIEDER» izen-ordeagaz, baiña orain lotsa ori alde batera itzita, bai aldizkarietan, baita liburu barriak egiñaz, bere izenagaz agertzen jaku.

Bere lenengo liburu biak, Urre-bitsa *ta* Uskeriak *olerki utsa ziran eta Paulin oindiño gizarte-arazoetara sartu gabe agertzen zan. Baiña azkenengo biotan Paulin'en ardurea olerkaritzea ta igarletzea alkartu gurea da. Liburu bi oneik* Gizonetan *eta* Gizadian, *liburu salatariak izan nai dabe. Ez salakuntza gogorretan eta lotsabakoetan. Paulin, gizon ondo neurtua da. Baiña bai egian, zuzentasunean eta azkatasunean oiñarrituta.*

Eta zer esango dogu Paulin'en izkereari buruz? Bere jaioterria, Etxebarria, bear dan maillara jasoten dauala. Ba'leuke Mogel'ek Paulin'en antzeko joskerea! Eta euskera garbia? Peru Abarka'k berak baiño garbiagoa, euskera ederra ta gozoa.

Orain arteko liburuak, oso-osoan itz neurtuz idatziak izan dira. Baiña Paulin'ek itz askatuz be ederto idazten dau eta orregaitik atsegingarri izan jaku erdia inguru itz askatuz idatzia dala jakitea.

Liburua argi ta polito agertu da: gaiñean margo baltza ta izki orlegiak, barruan argi ta garbi, errez irakurteko eran. 158 orrialde ditu, 71 itz-lauz, besteak itz neurtuz. Itz neurtu oneik, bai neurri aldetik, baita azken bardiñai begira ta igialdiz askatasunez beterikoak dira, gaurko olerkarien gisara, baiña barruan beti daroe igarle salatariaren indarra. Begira:

Egia ete da
gizonek diñoena?
zuzena ete da
andrak eskatzen dabena?
ainbeste milla urtean
ez-jakiñaren azpian
gizadiak gorriak ikusi ditu
aurrera urten eziñean...

GAMIZ

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 38
21-15-07 urrt.
BILBAO-5

ITZ ETA ITZ

Sortu zait
nai
aundi bat:
bizi naia.
Ezkerretik,
eskumatik
denak dira-ta.
Eskuman ezer
etzaiz.
Bizitzeko jo
bertzetik.
Euskeraz bizi
erderaz jan.
Etzakiat nora
joan bear degun.
Areztian
ibilli bear,
gitxienak
izanakaitik,
eta
piñuak
burjesak,
egizko erria
baserritarra
jaten dutenak.

Piñua jartzeagatik
galdu duk
erritasuna,
ta piñu artean
lan egiten ba'duk
burjesa aiz.
Areztia
ta
esku batua
or dira
anaiak.
Anai euskalduna
kendu egizak
piñuak
eta jarri
areztiak.
Ortik
ez ba'abil
iraultza
jakitunak
ez,
«intelektualak»
jaurtiko
ei'au eta.

PELLO

ABRA'KO IV JAIALDIA

Aurreko urteetan lez, aurten be leiaketa au izango dogu, bertan euskal abeslariak, euren abesketatik diru-biderrik ez daben abeslari bakarrak naiz bikoteak, agertuko yakuz, eta orrela abeslari barriak ezagutzeko aukerea be izango dogu.

Abesti biña entzugo yakuez, abeslariak eurak aukeratuak, baiña, beti, itzak euskeraz izango dira. Izenak emoteko azken eguna, guk beranduegi jakindogu-ta, joana da, au da: Azillaren 22'gnerako bialduak izan bear ziran, eta abestien erdal itzulpena be bai.

Bitartean, eratzailleak abeslarieri jakin-erazoko dautsee epai-maikoen izenak, eta onein aurrean eta bakarrean, ekiñaldi bat egingo dabe, ortik sei onenak aukeratu eta azken saioan agertzeko entzuleen aurrean.

Azken saio au, Lotazillaren 31'gnean izango da, Portugalete'n eta goizeko 11 ta erdietan. Sariak, entzuleen autarkiz banatuko dira; bat baiño geiago agertuko ba'litz autarki bardiñekin, orretarako aukeratua izango dan epaikariak erabagiko dabe nori dakogion sari aundiagoa.

Onek dira sariak:

1.—«Zidarrezko Abra» garai-ikurra, disko baten agertzea eta 3.000 laurleko.

2.—«Topinki domiñea» ta 2.500 laurleko.

3.—Bardin eta 2.000 laurleko.

4.—Bardin eta 1.500 laurleko.

5 eta 6.—Bardin eta 1.000'na laurleko.

Orra ba, urte onen azken egun eta azken igandez, Portugalete'n jai polita Gabon-zar on bati asiera emoteko.

* * *

Josoa dogu baita, Urrilleko Euskal Hit Parade'n jazoa. Il osoko neurketan W. S. Fischer'en «Gurea Da» geratu da garaille, eta onen ondoren «Agur Maria» Estitxu'rena, bigarren; irugarren aaztu ezin dan Luis Mariano zanaren «Ezin Aztu», gero «Los Barbis»en «Aurresku»...

Gabonetan eta Erregenetan adizkidetasuna erakusteko, polita izaten da diskoren bat eskeintzea. Zaindu egizuez irratiak ea zer diñoen euskal disko barrietzaz, Azillean eta il onetan barriak agertuko dira, ta ba-litzake euren artean beste garailleren bat be azaltzea. Zorionak danori, ta onezkoro datorren urtera arte J. L.

ASTI

NERE BORDATXOTIK

«Goiz-Argi», euskal aldizkari jatorrean, Aia'ko mutil gazte baten bertsoak agertu dira. Urdaneta auzune edo baillarako Luis Otamendi dezute berau.

Ijitoen biziera zer dan adierazten digu amabi aapalditan.

Ikus ditzagun bakar batzuk. Agur'en irakurleetan ere izango baitira bertsozale sutsuak.

Gure artera nola datozen
esango det ijituak,
soiñean zarpa zar da baldarrak,
geienetan puskatuak;

jateko ere oientzat beti
besteak naieztakuak,
edo bestela pasatzen diran
tokitik ostutakuak.

* * *

Ondo pentsatzen jarri ezkero, oien bizimodua errukarria dala, esango digu oraingoan bertsolari gazteak. Ikusi egiten ditu baserrian bizi danak, eta urteburuan denbora txar asko izaten da gure lurrean. Bustia, zer esanik ez.

Gaizki jantzita, erdi goseak,
eta bizkarra bustia,
askotan berriz ezin billatu
lo egiteko tokia.
Ama gaixoak bere lepoan
negarrez aurtxo txikia,
ondo pentsatzen jarri ezkero,
bizitza errukarria.

Umeak berriz nola eztuten
seaskik eta etxerik,
mundu ontako garraztasunak
probatu bear gazterik;

gose, egarri, otz eta bero,
miñez ta erdi bustirik,
naizta ez izan errurik eurak
jaio zirala besterik.

Zerbait koskortzen asi orduko
eskera tripa utsetan,
limosna ordez kopeta beltza
aurkituz zenbait etxetan.
Erdi negarrez ibiltzen dira
oiñutsikan lokatzetan,
errukiturik egon izan naiz
neguko giro otzetan.

* * *

Errukitsu agertuz gaiñera, dotore esaten ditu gauzak Luis Otamendi gazteak. Eta auxe da bertsolari baten egiteko nagusia.

Esaten dakien bertsolaria naiago degu askoz, ezer esaten eztuen olerkaria baiño. Ondoren datorren onek ere ba du bere mamia. Aundia, gure *ustez:*

Zenbait etxetan ikusten dira
gaur lujorikan aundiñak,
beste batzuek bizi eziña
eta miseri samiñak.

Eder, itxusi, aberats, pobre,
ijito ta erregiñak,
Jaungoikoaren lege barruan
ez ote gera *berdiñak?*

Zer erantzun bear zaio oni?
Arrazoi osoa duela Urdaneta'ko bertsojartzailleak.

BASARRI

GIXANE ENPARANTZA

Bilbo'ko auzo-zarrak gogoratuz, gaurkoan eta irudimenari jarraiturik, Gixane edo Enkarnaziño'ko enparantzaz bereala topo dagit. Bilbo'ko zokotxo polit, zaarrenetariko bat bera egitan bait-dala ta, nago. Atxuri'tik barna Bilbo'ratzean, eskumaldean daurkigu noski. Joan diran mendeetan zugaitz, basetxe ta oian txikiz inguraturik egoan. Es da aundienetarikoa, baiña lendik, eta orain bardin, sartu-urteera garrantzitsuak ditu.

Aurrez-aur, Aita Dominikarren Eliz eta Lekaidetxea dagerre. Len baten, oraingoak —gure Berriotxo'tar Valendin doatsua bide dala-ta— iñola ere gutxietsi barik, aldi loratsuak baitziran areik; Laterazko, Pilosopi-Jakintzerako ta Zuzenbide-moralezko ikasketan jarduteko lekaideen ardurapean Ikastetxe ospetsu bat be bertan egon ei zan.

Elizaren bestaldean, Santutxu'ko auzun ezagun aldera so egiñik, baegoan berebat moja botudun lekaimetxe aipagarri bat ere. Ainbat bilbotar andereiño, zein jayotzez apalak ziranak, zein mizkerietan azi ta leñargiko ta aitonen alabak eurak, Jauna'ren maitasunezko lokarri bigunean baturik eta euren bizitza Berari betiko eskeiñi eutselarik, ara pozez gaiñezka bertaratu ziran!

Enparantz erdian, zartzarora eldurikoen zaartegia dogu. Aterpe bedegarra gaurko egunetan batez ere, ta sarri-askotan seme-alaben norberekeri, zabarkeri ta itxutasunagaitik guztiz bearrezkoa dana.

Enparantz eskumaldean, Arandia jatetxe entzutetsuaren albotik asita, Goiko ta Beko Ollerias kaleetara joan geinteke. Goiko kale bidetik Sagarminaga ta Santutxu aldera abiatzen gara. Aspaldi baten Andoni deunaren baseliz bat inguru-minguruetan egoan. Orain «illaren landa» erderazko izenaz «Campa del Muerto» izendatu ta «Unión Begoñesa» deituriko etxe-merkeen auzunea, beste etxe moltso-pillotartean daurkiguz.

Sagarminaga euskotar jatorra aitatu dogu. Izenez Pidel ba'zan, izanez edo izatez Bizkai'ko Lege-zarren aldezlari porrokatua beraz. Or dozuez betarik izatekotan, Bizkai'ko Edestia XVI'etik XIX gizaldietaraiño sakon eta garbi adierazorik berak idatziriko zortzi atal mardul dituan idazti zoragarrian.

Gixane zabal-gunearen ezkerraldetik jotekotan, Atxuri'ko bultzien Geltokira ta bertako Ikastoletara goaz. Ez dakit ziur ango umeei euskerarik damotseen ala ez. Aurreratxoago, San Anton'go Eliz inguruetara urten geinteke... Ez noa baiña geiago luzatzera.

Bakarrik dirautzuet, egungo egunean ez dala enparantz au len bezain paketsua. Orain, bertatik urtenda berein jende-belbil Bizkai'ko ta Gipuzko'ako beste ainbeste errietara doaz. Aldi-aldakuntzeen zeregiñ berezia agian. Aurrerapideen gertaera naitaezkoak zalantzik gabe. Euskal-Erria danetan aurreratua dogu. Ea euskal ekanduetan ere bardin jarraitu oi dogun! Ez bai dagoz gure oiturak aurrerapenaz mokoka ta asarraturik-eta. Ta oiturak ezezik bein ta berriro esatera noatzue gure ele maitea ere erabilli ta zaindu bearrean gagoz.

Iñoiz izatekotan gure Ama Euskera, gaurko giro negargarriak bide dirala, gaixorik dagerkigu. Guztiok batu bearrean gagoz, osatu dagigun. Datorren gizaldiak epaituko gaitu. Tartean alkartu gaitezan. Orrela, oztoporik gabe, Ama Euskerari dan-danok lagunduaz, bere biztueraren asierea ikusi al izango dogu.

ARREGI'TAR JOSU

GAINDIKO GOGO-AUSNARKETA

Gaztelera, «Meditación trascendental» deritxoe: M. T., guk G. G. deituko dautsagu emen. Gaindiko Gogo-ausnarketa G. G. au 250.000 personak egin dabee aspaldi ontan Ipar-Amerike'tan, guk, gogaketak, ejerzizioak egiten genduzan antzera. Millakak illero egiten ditue. Ia guztiak gazteak dira. Gazteak eta elizara joateari itxita egozanak.

Igaro diran amar urte oneitan, elizara joateari itxita, milloak gazte ibilli jakuz bide barri baten billa. Geienak «droga» artzeari emonda. Milloa erdi baiño gazte geiago geratu izan jakuz drogazaletuta, katigatu ziran amu orretan, eta ezin oinperatu oitura gaiztoa.

Guraso askok milloak gastau dituez eta gastatzen diardue gaur euren umeak oitura txar orretatik ateratzeko. Osagilleekin bota dituen diruak alperrikoak izan dira geienetan: «Iru urtean, berrogei milla dolar eroan daustez osaki, osagille ta osategiak eta ez gara iñora eldu», iñostan ogetabost urteko neska baten aitak.

Azkenengo urteetan gazteak, drogazaletasuna oinperatzeko G. G. bidea aurkitu dabe.

G. G. ORI ZER ETE DA BA?

Gaur egunean gizona munduko, bizitzako ardurakin zorabiotuta lez dabil. Gaurko bizikerak tolostura asko ditu. Ez da gaur lenagokorik. Lenago eizan egiñ, jan eta lo zan gizonen bizikera. Geroago basarriko bizitza, tolostura geiagokoa ba'zan be, ez zan gizona sakaka erabillana.

Gaurko bizitzak sakaka garabillaz alde guztietatik. Iru urtetik gorako umeak beso bete liburugaz dakusguz ikastoletara bidean... Lantegian, oflziñetan edozelako zeregiñak milla buru-auste dakarguez. Bizitzako sakaketak zorabiotu, zaiñ-ikaratu dau gizona.

Zaiñak, nerbioak, bere lekutik, euren senetik atera dauskuz bizitzak. Gizona bere senera barrian sartzeko, Gogo-ausnarketa sakona da onena: Munduko ardurak alde batera itxi, norberen barruan batu ta ausnartu. Ausnarketa onek lo-amesa lakoa izatera eldu bear dau. Ausnarketa onetan gauza guztien iturri dan, gauza guztien sustrai dan, Gogo Nagusiagaz bat egiten ikasi bear da...: «Zatoze Neu'gana ta atsedendu zaiteze apur bat», esaten eutsoen Jesus'ek bere apostoluei.

Gogo Nagusia edonun egoala, dana betetzen dabela irakatsi euskun Jesus'ek. Kristarrak Gogo Nagusiari «Goteuna» deitzen dautsagu. Gogo Nagusi orreri «Mantra» deritxoe Sorkalde'ko errietan.

Gogo-ausnarketa gidariak, maixuak, egunero ogei minutuko ausnarketa aldi bi egiteko diñotsee Ipar-Amerike'tako gazteai. Irakas-bide au jarraitu daben gazte askok oinperatu dabe droga-zaletasuna.

Gitxi-asko bizitzako sakadak, presiñoak, eraginda garabillaz. Bizitzak drogauta gaukaz.

Gogo-ausnarketak, gure elizetako illun-ixilpeetan eta gure mendietako bakartade garbian egiten ikasten ba'doguz, osagilleakin berrogei milla dolar gastau bearrik ez dogu izango ta barruko ni-taldea osorik zaindu aal izango dogu.

ERREKALDE'TAR DEUNORO

ONA

ta

RAM

EZNEAK

ZUK

ONARTZEKOAK

DITUZU

Ipar-amerikako Auteskundeak

Nixon-Mc. Govern

Lau urtetik bein Ipar Amerika'ko auteskundeak sortzen diranean, guziori alako pentsakerak bururatu oi zaizkigu. Bi alderdietakoak, egundoko dirutzak erabiltzen dituzte, gero irabazten dunean batek, diru oiek berriro lortuko dituztelakoan. Ludi guziko izparrak zirt eta pitz idazten dituzte. Izan ere, alako aizkurea ematen du telebizetan zaragata oiek ikusirik.

Nixon, lau urte auetan oso ezagun ebillia da, batera ta bestera joanaz pakearen billa. Txina, Rusia ta Japoi... onta ez zan joan, geroko utziaz. Gaur, beste lau urteko Ledakari danez, joango da ara ere.

Aurrerantz ze bideri elduko dio Nixon'ek? Berak dionez, Europa ta Be-Amerika nai ditu tolostu. Ez dakit ba, gogoratzen naiz ni urte artan Karakas'era etorri zanean Nixon, ze nolako arrera egin zioten karakeiñoak... bere berebilla zearo txistuz estaliz ta berebil berari ia bira emanaz:

Ez zuten maite gizon ori! Nik ez dakit zergaitik, baiñan, orduko Eisenhower arek artu-emanak naspildu zituala ta aitzeki arekin-edo, beintzat, une aiek ez ziran ain gogozkoak izan nixontarrentzat.

Orain ostera, berak dionez, Be-Amerika konpontzekotan da. Konponketa ori, jakiña, diruz lagunduaz, besterik ez. Guziok daikigun albistea da, goiamerikanoak, beren ondasunak, ugari dituztela Beameriketan. Pentsa, Venezuela guzira janari guziak bialtzen dituzte, dala konjelatuz eta abar. Zer esanik ez, beste orko berebil, burni, ontzi ta millaka gauz. Nai duena esango dute goiamerikanoak beamerikanoagaitik, baiñan bekoekin onez bizi bear dute, beren irabaziak zaintzeko.

Auteskunde oiek xelebriak izaten dira, ta ori lau urtero ikusten degu. Aurretik guziak bai-dakite zeiñek irabaziko dun. Ortako daude dalako enkuesta oiek, HARRIS-GALLUP. Bai, izan dira uste gabeko aldrebezkeriak, Truman'en denporan. Baiñan, geienetan asmatzen dute. Orregatik, ludi guzian ikusten gendun Nixon garaille aterako zala. Lendakari bai. Eta, zer Senadu, Kongreso ta gobernadoretan?... Auek demokratentzat.

Orain begira dezagun beste gertakizun bati. Guziok dakigun egia demokratak dira mayoria goi Amerika guzian. Demokrata oiek emanaz edo botiaz beren botoa errepublikanoari. Emen esango ba'gendu bezela, txaketero asko daudela an... Nere ustez ordea, ez da orrela. Interesak noski jaun da jabe, ta oiek zaitzeko ikusten zuten Nixon oraingoz beintzat obeki zutela agintzen. Gero, emendik lau urtera ikusiko da ze nolatan jotzen duten gaur Nixon'i beren dotea eman diotenak.

Etzitzaioten komeni Mc. Gobern'ek irabazterik. Zergatik? Zergatik izango da, baldin onek irabazi bazun, emendik lau urtera berriro bera izentatuko zutelako beste lau urterako, ta... or dago ernai ta zai Kennedy gaztea. Ori izango da urrengo lendakaria. Ontan, nik beintzat, ezpairik ez daukat!

Beltzak, gizajoak, auek oso itun geldituko ziran. Orain artean demokratari eman bai zioten beren botoak italiano, judio ta abarrek, aurtengo ontan oiek, bestera jo dute ikusi deguna gertatu da.

Beste aldetik, Nixon'ek itz eman zun Vietnam'go gudaketa bukatuko zuala. Naiz ta oraindik azkena ikusi ez, ba-dirudi bide ortan dijoala. Baldin Nixon'ek galdu izan ba'zun naste-borraste aundia sortuko zan, ta garrantzi aundia duten gauz oiek eraginda, Nixon'ek izan du, orain artean ikusi ez duten botazioa.

Ze bideri elduko dio orain Nixon'ek? Lenen Vietnam'go guda bukatu. Ez da erraz izango, kontu izan bearko dulako Sub-Vietnan'go milloieren iritziak. Ortako ortzak erakutsi dizkio ango beko lendakariak. Begira, ikusi degu telebizan ze bilketak egin dituzten ango bost milloi katolikoak... oiek ez dira askok uste duten iritzikoak. Bai, guda guziak alik eta azkarren bukatzea nai dute. Ortarako ordea, gauzak bear diran bezela egin bear dira, tar ez goikoak nai duten bezela. Vietnam-goikoak prest daude ziñatzeko, baiñon bekoak esaten diote, lenen irtetzeko goiko gudariak, amerikanoak ateratzeko itza eman duten bezela. Zer nai dute, bekoak irten eta goikoak bertan iraun...? Ori gertatzen ba'da, ikusiko genduke pakea ez dala izango bear dan bezelakoa. Goiko oiek berealan artuko lutekelako Vietnam guzia ta komunismoa izan garaille ta jaun ta jabe.

Beraz, luzeegi joan gabe, bukatu detan. Ludi guziak begiak argi ta ernai dauzka zer ta nola jokatuko dun orain Nixon'ek ikusteko. Gero beste orrenbeste egin dezan Israel'en. Bien bitartean, epe bat eskeiñi daiogun Nixon'i ta esan: ZORIONAK ongi jokatzen ba'dezu!

E. OZKIN

ALKAR-IZKETAN

—Aste onetan, Peru, mundu negargarrian bizi gozakala gogoratzen etorri nok.

—Manu, zer dala-ta diñok ori?

—Zorioneko edo obeto esateko zoritxarreko, Vietnam'go gudeatzaz egunokaz irakurri yoadana, izan dok nire buruaustearen iturri.

—Ori antziñako kontua dok mutil, ia aspertuta gagozak andik yatozekan izpar negargarriakaz.

—Baiña oingoan alde batetik pozgarriak dozak, naizta bestetik negargarriak izan. Pozgarria dok alde batetik «bakea urrean yagoala» entzutea, eta negargarri benetan, azkenengo zortzi urte oneitan bakarrik an gertatu dokana. Dirutan Iparamerika'k bakarrik eralgi yoana 105 milla milloi dolar izan dozak. Dolar bakotxak 60 lauerleko balio ba'yozak kontu ataraik zenbat pezeta izango dokazan. Baiña ori ez dok ezer. Orrez gaiñera milloia ta iruregun milla lagun il dozak, eurotarik 45.884 amerikatarrak gudan, eta beste zeregiñetan 10.231. Vietnam ego aldekoak 182.229 eta onen lagunak 5.199. Vietnam ipar aldekoak 904.000 gizon galdu yabezak zaurituak alde batera itxita.

—Ta astakeri guzti ori zertarako izan dok ba?

—Batek ba-yakik! Baiña nik uste yoat gudearen atxakiagaz batzu-batzuk «negosio» ederra egin yoelako.

—Ori mutil, guda guztietakoa izaten dok. Sarritan esaten dauat, «negosio»rik ez ba'legok, guda luzerik ez litsoakela egongo.

—Olakorik ez yabek eurak aitatzen, baiña bai gizabidearen alde ta komunismo aurka yokatzen yoela mundu guztian zabaldu... Zuzen-zale, lege-zale ta gixaxo burua eginda...

—Mundua olantxe dok. Egunoro ez yoguk ikusten gizon batek beste bat asarrean erail yabelako zuzentasunaren izenean zigor gogorra ezartzen; eta bonba bidez erriak ondatu, millaka errugabe erail eta iñor ez yoat zigortzen ikusi.

—Olango gauzak ikusteko ez yagok luzero bizi bearrik. Eta txarrena olan izan bear yokalakoan arritu be ez gozak egiten.

—Orduan, nozko dozak gizonaren duintasun, nortasun, azkatasun eta eskubideak?

—Ori yiñoat neuk be, askoren agotan itz ederrak, egite txarrak estaltzeko, eta norberari ondo yatorkonean bakarrik aintzat artzeko. Orretan gozak mutillak!

—Baiña, egia, zuzentasuna ta beste eskubideak guztionak dozak, goikoenak eta bekoenak... edo iñorenak be ez, orretan guztiok bardiñak gozak-eta.

—Ori egi andia dok, baiña baita, goitik bera errezago arrika egiten dokala, betik gora baiño. Orregaitik bean yagoanak kaskarreko geyago artzen yozak, eta mundu obe bat egin artean olan izango dokala uste izatekoa dok.

—Nik uste yoat, mundu obe bat egiten alegintzea baiño, oingoz, naiko izango dokala mundu on bat egiten alegintzea, gizon eta gizarte bakotxaren eskubideak aintzat artuta.

—Ortik asi ezik benetako bakerik ez dok izango iñon be, ta Vietnam'en gitxiago.

—Alantxe dok. Munduan itz onak baiño egite onak bearrago dozak izan be!

—Au, luzetxo yoak eta urrengoan yarraitu bearko yoguk.

—Agur ba, urrengorarte!

URIGOITIA

MATXITXAKO X

TEXEIRA JAUNAK INDATZITAKO JAZOKUN BATZUEN EGIZTASUNA

Jaun jakitun onen agiriak edo usteak, guretzako ain «samin eta mingotsak» izanagaitik, eretxi oneik zearo aztertu ezkeroan, gure Edestiaren «ixil eta eskutuen» gertaera askoren argitasunak damoskuz batez ere, Bermeo'ko urian MATXINTZALARIAK egiz izan zireala eta argi izentauten dausku eurek eukiten eben ezkutokia, euren bizia, ibilketak, egitadak eta burruka izugarriak, eta olantxe idazten dausku:

«...Sorkaldeko itxas-egalean, ezkutoki lekuan, esandaiko Bermeo'rantza datorren itxas-ertzean, itxas-lapur eta 'untzizkillu' edo 'corsarioaren' untzi asko gelditu eta lotuten dira...»

Egiz, «ezkutoki» ori, dakuskunez, itxas-ertz luzea da, Gibelpe eta Galdiz-erreka'tik asita, «lur-mutur» edo «cabo» deritxon erpiñararte, aintxiñako SEKUIDI eta TORRONDO deritxon itxas-egal eta lurraldeak diraz, eta toki bion izenak, MATXINTZALARIAK asi ziranean euren arrigarrizko guda-egikada kementsuak egiten, erritarrak, leku orrei, MATXINTZALARIEN izen ordez, barria ezarri eutsoen, MATXITXAKO izena, izen laburtua, baiña bardin antzera jakin-arazoten dauskuna.

Eta TEXEIRA jaunak, bere idaz-lanean, onetara darrai:

«...eta erriraturik artuten dabe ura, egurra eta eurak bear daben guztia, ezetariko eragozpen barik...»

Bai, esakun au ere egia da, «erriraturik diñoskunean, adi-erazoten dausku Bermeo urira etorten zireala, eta emengo toki baten, «eurak bear daben guztia artuten ebela», leku ori, gaur ere, ondo ezagututen dogu, Txibitxiaga'ko aldatza amaitukeran, Portu-Buru'ko lurraldeak asiten dira, eta bion bitartean, BERMEO idazkuna ezarrita daukon etxean bertan, itxaso-ertzeraiño, gaur Bultzi-bideraiño, doan bide okerkadako eta estua, orixe da MATXINTZALARIEN bidea, MATXIKORTA deritxona, izen berezia, eta egoki-egokia.

Eta ondiñokarren TEXEIRA jaunak, jarraituten dau onetara:

«...eta sarritan, itxas-mutur edo 'Cabo-ganean' itxas-zaindu ikuslaria dauke...»

Gizaldiak eta eunkiak igazi edo «pasau» arren, gaur ere, aintxiñako toki ber-bertan itxas-zaindu ikuslea aurkituten da: itxasoak zaindu, ortzea arakatu, edoi-baltzak, edo edoi-narrasak sortuko ete dirazen, zelako eguraldiak izango ete dirazan, itxasoetara urteteko gaiztasunik izango ete dan eta onetariko itxas-arazoak jakin erazoteko arraintzallai, oitura au zeatz-zeatz zainduten da gaur ere.

Toki ori, «Baso-galante» deritxon bideetatik, zerbait aurrerago, Pozu-illuna deritxon tontortxuan, aurkituten da, egunotako bere izena «Talayeruen Etxia» da, BERMEO'KO ARRAINTZALIEN ANAIDIAK eutsin eta jagoten dau, eta «Etxe» orretatik, egunaro, gau eta egun, itxasoaren eta eguraldiaren gora-bera eta jazokun dan-danak urrutizkiñez, Bermeo'ko ANAIDI Etxera emon bearrekoa da, aintxiñako gizaldietan, obeto esateko, oraintsuko urteetaraiño «Su-garrez» egiten zirean ezaugarri oneik.

Arraintzale zar batzuen artean, bai-dira ondiñokarren, MATXINTZALARIEN bide-lorratzak ezagututen dabezanak, bear-bada, gurasoekandik-gurasora erakutziriko oin-bidetxoak.

Baiña MATXINTZALARIAK bai-eukazen beste itxas-ezkutoki batzuek, euroen artean, MATXITXAKO'tik naiko urbil dirazenak: PORTUME, Armintzako itxas-ertzean, Jata-pean, ATXIKORTA, Izaro'ko aitz erpiñean; MAKU, Ogoño-pean eta MATXIKORTA, esandaiko Bermeo'ko urian.

Eta azkenez, TEXEIRA jaunak, diñosku:

«...untzi bat ikusten dabeneko itxas-lapur edo 'untzizkillu' doaz untziarengana eta menperatuten dabe, jazokun oneik sarri-sarri jazoten dira...»

Arrigarrizko gertaera samiñak izan bear eben itxas-burruka orreik, ba, diñoskunez, ekin eta ekiñakaz «menperatuteko» benetan itxasgizon orreik bera itxasoa baiño gogorragoak zirean, eta eurek egin eben «zin-egintza» bete edo «bayeztu-arte» MATXINTZALARI kementsuak ez zirean geldituten, euren egin-bearra «Il edo bizi» zan, gau-egun nekatu barik, ekaitz gogor edo bero-larriak izan, arek eta itxas-lapur eta «untzizkillu» edo «Corsario» dan-danak gure itxasoetatik kendu eta garbitu arte ez euken bizirik.

Gogotan izan bearreko gara, egiz, gure ARRAINTZALIEN ANAIDIKO ARAUDIAK, aintxiña-antxiñatik, orretariko itxas-burruka eta egitade garratzak, guztiz gebenduta eukazala, baiña, gure itxasoetan itxas-lapur eta «untzizkilluak» edo «Corsarioak» baster guztietan ugaritu eta edatu zireala, eta arrisku ain andia ikusirik, ez egoan beste biderik, «bein-batekoz» «indarrari indarragaz» aurpegi emotea baiño, kementasun guztiagaz aurka egitea, eta olantxe sortu zirean MATXINTZALARIAK «ekiñen-ekiñakaz», urteak eta gizaldiak igazi-arren, arek-eta itxasoetako askatasunaren garaitza lortu arte, nekaldiak, zigorrak euren lepoetan artu, baiña azkenez, gure erri eta itxasoak itxas-lapur eta «untzizkillu»ak menperatuaz jadetsi zan guztiak itxaroten eben gentza.

(J. l., jarraituko da).

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK

Martin Aldazabal TENDERIA, 3

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Uzta Txar Baten Ondorenak

Onezkero iñorentzat ez da izkutuko gauza sobietarren aurtengo ale-uzta kaxkarra. Negualdiko izozte gogorrek eta ondorengo legorteak ondatu omen die uzta; edo-ta beraiek beiñepein orrela agertu nai izan dute arazoa. Neroni dagonillean ibilli nintzan an aietan, eta ikustaldi bakoitzean laguntzen ziguten gidari sobietarrek ao-batez esaten zutenez, aurtengoa izan omen da gizaldi onetan zear URSS'en ezagutu dan udararik legor eta beroena.

Beste ziorik gabe ezin diteke uler, ala ere, jaso duten uztaren urritasuna. Eguraldiari erru guziak jaurtitzeak ez luke zentzurik. Oraintsu frantzitar telebistak eskeiñi duen solasaldi bat gogorazten dit arazo onek. George Marchais —frantzitar A. K.'ren idazkaria— eta Alain Peireffite —UDR alderdiko idazkaria— agerrarazi zituzten aurrez-aurre. Eta biek eduki zuten eztabaida bereziki URSS'eri buruzkoa izan zalarik, maioriaren ordezkariak ale-uzta kaskarraren arlo auxe aipatu zuenean. Marchais jauna txit mindurik agertu zan, onoko eta ura besteren ezbearrez poztu izan ba'litz bezela edo. Peirefitte jaunaren arrazoiak ez ziran, nolanai ere, mamigabekoak edo utsak. Izan ere, Alsacia alako —edo Errioxa alako diogu guk— lurralde bateko nekazaritzak erabat eguraldi txarraren ondorenak nabaitzea ez da arrigarri. Ludi guziaren seitatik/bat batetzen duten lurralde izugarriak —URSS guzia alegiadanak batean eguraldi gaiztoz zigortuak gertatzea ezin ditekeena da.

Zerbaiten akatsa ba-du oraindik ere sobietarren nekazaritzak erakunde edo egimen aldetik. Eta auxe urrundik datorkien korapillo ta buruaustea izan bear iñundik ere. Irakurri izan dugunez, beiñepein, boltxebikeen beraien arteko lenengo borrokak eta «purgak» arazo beronekin zer ikusirik bai omen zuten: nekazaritza sendotu nai zutenak alde batetik eta lantegintzan iraulzaren etorkizuna somatzen zutenak bestetik. Iñundik ere azken auek gaillendu ziran. Kruschef'en agintepean ere nekazaritzak errenka jarraitzen zuen URSS'en. Zenbaiten ustez egun bateko nagusi dizdiratsuak argatitxek galdu omen zuan agintaritza. Dana dala, gaur egun berriro nabarmendu dira sobietar nekazaritzaren egituran zartadurak. Ukrania'n bakarrik igaztik ona 6 milloi t'erdi toneladaren akatsa azaldu da, 39,8 molloitatik 33,4 milloi toneladatara aurtengo uzta jetxi dalarik, ots, %16 gutxiago. Bertako nekazaritzaren arduradun edo ministrua kalera bidalia izan omen da.

Eta argibiderik geiago ere eman dezakegu noski. Europa'ko laterrietan, batanaz-beste, naiko uzta ona jaso da; CEE barneko laterrieri ta Bretaiña Aundia'ri dagokionez, adibidez. Ostera, URSS'en inguruko laterri komunistetan, ots, Polonia, Hungria, Yugoslabia... aurten jaso dan ale-uzta igazkoa baiño zenbatez urriagoa gertatu da: irutatik/bi besterik ez alegia. Aitzitik, aldi berean, beraien burni ta oiñarrizko lantegintzak ajolazko gorakada egin du. Olagintzaren aldeko buruzpidea nagusi, beraz, laterri komunistetan gaur egunean ere.

Orain aleagaz ari geralarik, ordea, sobietarrek benetan oparik aal izango dute negurako bear ainbat ale etxeratzea. Frantzia, Australia ta Suezia'tik ornitu dira dagonekoz, 2 milloi t'erdi tonelada gari erosirik. Ala ta guziz ere, ornitzaillerik nagusienak USA ta Kanada izango dira. 20 milloi tonelada garirentzat salbidea sortu zaie iparramerikatarrei. Baiña bigarren guda ezkero URSS'en artzekodun izanik, ez zuten garirik luzatuko diruaren truk ez izatekoz. Aatik ba, URSS'ek dolarrik ezean, urrea saldu bear izan du. Era onetara laterri kapitalisten diru-sistemari mesede galanta egin diote sobietarrek, jakiña bai da auen gisa onelako buruausteak —dolarrarenak bereziki— urre eskasian sustraietako bat duela.

Arazoaren alderdi bat besterik ez dugu ikutu oraindik. Izan ere, nola eraman ale pilla izugarri oriek URSS'eko kaietaraiño? Mendebaleko itxasontzien jabeak eskuak igortziten dituzte une auetan. Ez da ez txantxetako lana ogei ta bost milloi tonelada ale Ipar-Amerika'ko ertzetik URSS'eraiño eramatea. Uretako karreatzaille auen salneurriak —fleteak— zuzenean omen dijoaz goruntz. Puntu onetan ere iparramerikatarrak beren baldintzak ezarri nai izan dituzte, eta bai eta lortu ere dirudienez. USA'tik aterako dan ale guziaren karreatzaille bakarrak izatea es katzen bai zuten bertako itxasontzien jabeak. Ortarako ipiñi dituzten lareun itxasontzik zenbat joan-etorriten bitartez amai ote dezakete beren eginkizuna? USA'ren ogei milloi toneladaz gaiñera Kanada'tik eraman bear diran beste 5 milloi ere kontuan ar ditzagun. Eta irakurtzen dugunez, emen bertako itxasontziak lanez itorik aurkitzen omen dira.

Eta azkenik, ain ulerkorrak ez diran eragozpenek arazoaren azken onari atzerapena dakarkieke. URSS'eko kairik nagusienetara elduak diran alez betetako lenengo itxasontziak inguruetako uretan lerrokaturik itxaron bearrean aurkitzen omen dira, alegia, alea noiz ustuko zai. URSS'eko kaiok ez dute nonbait datozkien itxasontziok etorri-ala usteko ainbat eskuarte edo egimenik. Ala kakoa ez datza or? Kaietako arduradunek aitortzen dutenez, jetxi dezaketen ale guzia nun utzirik ez dadukate. Izan ere, alea jetxi-ala errotetara zabaltzeko bear lirakean tren-gurdien % 40 besterik ez omen dituzte artarakotu agintariek. Eta okerrago oraindik, aietako zenbait alea eramateko egokiak ez diralarik, ale asko bidean galtzen dan albisteak ditugu.

Sobietar agintariak kezkaturik agertzen dira, eta ez da gutxiagotarako! Erositako ale guziaren % 20 edo ez bai zaie eldu oraingoz. Beren buruausteak astunduz ez ote dijoazkiekeen beldur dira. Eta bien-bitartean USA'ko kaiak alez beterik omen daude, noiz aterako zai.

Auek onela, gauza batek arritzen gaitu. Laterri-ekonomiaren alderdirik eragikorrena ez da ain zuzen egimena, iñoren kabua iltzearen ondorena dalarik. Baiña planifikatze edo antolatze aldetik ere utsegitea... ez zaigu ain oikoa iduritzen.

JOLU'k

Boutique

Cerra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

Txekoar Langilledia Makilkatzen

1969'gko Epailla'n txekoeslobakiar langillediaren sindikatoak egin zuten Batzar Nagusia, itxaropen eten baten mingotsa izango du etorkizunean emengo langilleentzat.

Illabete batzuk ziran oraindik, ain zuzen 1968'gko Agorrilla'n izan zirala gertakizun odoltsu eta garratz aiek, errusitar tankeen indarrez txekoslabakiar azkatasun zaleak nozirutik.

Alabaiñan, errusiar gudariak eta tankeek an jarraituarren, matxinadaren aurreko giro sutsu, azkatasunzale ta aberkoiarekin ospatu zan Batzar Negusi ori.

Zazpigarren Batzar onek oiñarri bat zeunkan, «Bi milla itz» zeritzan Erriaren Deia edo manifiestoa. Beren zulo beltzetik, beren egoitz txarretik irten nai zuten langilleak, ez bai-zuten agintzen beren arazoetan, niaz izenez sozialismoa ipiñia zegoala esan. Estaduaren morroi ziran funtzionarioek izaki, sindikatoetan, arazo ebaille ta jostun. Ongi aski zion Dei onek: «Guztiok dakigu, batez ere ba-daki langille bakoitzak, langillediak ez zuala egiazki arazoetan ezer erabakitzen. Langille ez ziranak aukeratzen zituzten langille zuzendariak, sindikato buruak».

Zazpigarren Batzar orren biotza sindikalismo garbi baten odolez mugitu zan. Beetik, oiñarritik zetorren mugimendua zan, egoitz narratx ura zerbaitetan konpontzearren. 1968'gko Epailla'ren 29'gnean «Prace» izparringiak ongi bai-zekarren: «Sindikatoei, langillean zeletari batzuek izatera beartu gaituzte. Langilleen utsegiteak zigortu bear ditugu. Lan geiago egin dezaten beartu. Eta salatzen ginduzten baita ere, langillen auzietan langilleen alde jokatzen genuala, «fiskalak» izan bear genuenean». Baiñan emen egon koska: Langilleak estaduaren menpetasunik gabeko sidikatoak nai zituzten. Baiñan, errusitarrak ito zituzten odoletan langilleen azkatasun asmo zintzoak.

Zoritxarraz, Batzar orren ondorioz ez da itxaropen ortatik ezer gelditzen. Errusitarrak Txekoslobakia'n sartu aurretik, illabete batzuez lenago Sindikatoen Zuzendari Nagusian lendakari izendatuta zegon Karel Polacek batek, bere agintea utzi bear izandu zuan. Alperrik egin zioten txalo bero Batzarrean zeuden 1.600 ordezkariek, aitatu zualako: «Sindikatoek jokabide ausarta izan zutela idazko asaldatze edo inbasioan». Itzok ezin izan errusitarren gogokoak. Beraz, onen ordez Jan Piller ipiñi zuten. Au, berez ez zan sindikalista. Aiek ipiñia, baiñan «biguntxoa» zala-ta dimititu bearrean arkitu zan. Onen ondoren, Karel Hoffmann. Masailleko latza izan zan izendatze au sindikalismo jator batentzat. Irratietako buru zegoalarik, moldatu bai-zan luzapena emateko agertu bear zuan berriari, au da: Txekoslobakiako Presidium baten salaketa, errusitarren aurka, auek indarrez sartu ziranean. Onengatik, Zientzia Akademakiak, bere «liburu beltzean» traidore bat zala ipiñi zuan.

Errusitarrak indarrez langilleen azkatasun naia ito zutelarik, berealaxe asi ziran, auek «disziplina» batean sartu nairik. «Prace»k zion 1970'gko Epailla'n: «Oiñarri edo beeko (base) sindikato erakuntzak, sindikatoen jokabideak aztertzen dituzte beren batzarretan, baita sindikalisteenak ere; ipiñi diran agintariak berengandik itxaroten zana ematen ez ba'dute «dimititu» egiten dute, edo bestela jaurtiak izan». Eta jarraitzen zuan, «Prace'k... prozeso au asi besterik ez da egin, eta beeko sindikato erakunde askok ez dute oraindik ongi aztertu beren lenagoko jokabidea». Adierazi nairik bezela, naiz agindu zorrotzak ar ez dijoaztela gauzak ain errezki zapaltzailleentzat. Garbiketa edo depurazio gogorra izan da, baiñan ba-dirudi gogorragoa dala txekoslobakiar langilleen burruka-gogoa, diotenenan: «Errusitarrentzat Errusi, Txekoslobakia guri».

Auxe guztia gogora-arazi digu aurtengo Garagarrilla'ren 12'tik 15'era bitartean Txekoslobakia'n egin dan Sindikatoen Zortzigarren Batzarrak. Errusitarren makil-«jarabeak» bere lana egin du. «Amen»-«Amen» egin bai-diote errusitarren gogoari, errian agintari dauzkatenen bitartekoz.

Onegatik, Batzar orrek ez du ezer berririk ekarri. Txekoslobakia'n, diktadura dagoan toki guztietan arabera, Sindikatoa estaduaren morroi izaten jarraituko du. Sindikatoa ez da izango langillediaren babeslari, makildari baizik. Langilleak baiñon lau aldiz geiago irabaziko dute funtzionarioak. Eta auek, beren beribil barrunetan dijoaztenean, ez dituzte nabaituko oiñez dijoazten langilleen arpegi itunak eta bekoki goibelak.

Eta zailla izan, itxaropenez bizitzeko, komunismoaren kate aztunak etentzen diktadura urratzen.

Komunismoan anai dituzten txinoak, ongi ezagutzen dituzte, errusiarren komunismoa inperialismoan biurtu dala, esaten dutenean.

OLAZABAL'TAR XABIER

USANSOLO

«Basa-Jaun» gaixorik

Azillaren 18'ko aldizkaria irakurrikeran, batek baiño geiagok utsune bat aurkituko eban. Galdakao'ko barririk, gure Basa-Jaun ospetsuaren izena ta bere idaslan garbi ta mamintsuak, iñondik ez.

Zer dala ta? norbaitek esango eutsan bere kolkoari. Tamalez gaizorik daukagu. Aurrerapideak be bere akatzak daukaz. Urte batzuk dirala, tamalgarrizko eragozpen bat izan eban gizon euskal jator onek bere lanetaro oiala bide zabaletik. Osasun beterik egoan mendigoizale trebe orrek, an egindako zauriagaitik ainbat egun igaro zituan gaixo-etxean.

Eskerrak bere gogotasunari, arazo ortatik urte eban, baiña zaurien lorratzak ez dira guztiz aldendu. Barriro be, mendian ikusi dogu, bere nortasun ta izakerea gure gastediari azaltzen, gurutz bidea zelan eroan bear dan erakusten, baiña noizean bein, len esandako lorratz gaizto orreik euren eskaria dauke. Baiña ordu illun orreitan be bere gizontasuna agirian.

Ez ba'eustan berak urrutizkiñez deituko, Agur'en barriak argitzeko (oean dagoala be, ezin bere biotzeko lanari guztiz itxi) ez genduan ezer be jakingo. Ordu alaiak denokaz, baiña illunetan bera bakarrik.

Irakurle maiteok. Ezin geinke bere soiña gure eskuakaz osatu, baiña bai gure otoitzakaz Jaunari dei bat egin, euskaldun idasle jator onek, oraingo gaixo-zital onetatik ainbat ariñen urten dagien, bai bere onerako ta bai ta be gure Erriaren onuragarritzat jarraitu dagian bere lanean.

Aurrestiaz eskerrik asko.

ATXUTEGI'TAR JULENE

ERRIETAKO BARRIAK

Arratia

Etxe batean kea egiten zala-ta, bestea otza zalako, irugarren etxeko gela ezkutu epelean alkartzen izan dira, Arantzazu'ko amonak, amama kartetazaleak, jai ta igandero altzokada urreontzak jokatzera.

Neskato-mutiko koskortuak be, etxe artan bertan txolarte-gela (astialdietarako tokia) eta, asarratu ziran, ba egun batez, eta atsotxo gordiñenak, gazteenak, iraulketa egitea erabagi eben.

Iraulketa itza, zarrago ziranentzat, gogorkerizko ta odol-egarrizko itza iznik, aitarenka, txutxu-mutxuka ta izuturik eleizaren inguruan zebiltzazan; eta gazteagoak, arrorik eta txairorik, anka ezkerragaz gurpil-txirrinka egiñik erromerira, auzora, ELAI-ALAI deritxon ateetaraiño.

Iraulketa baketsua ta ikaskizun ederra erri eta laterrientzat, aitarenka ta erromeriz asarreak azpiratzea.

Alboko errian, izena obe aitatu ez, oso bestera jazo da, senditartekoak illerrian asarratu ta, enparantzan, plazan... ia-ia musturrak gorritu.

* * *

Esan ba'neban esan, taloburdiñik Zeanuri'n ez egola, esan neban, baita, entzutekoak eta bost entzun bere. Eta emen naz estutasunez, larririk, igesian bide guztietatik; ortik eta emendik; Jesus Ozerin dabilkigulako burduntzi luzanga zorrotza eskuan daukalarik... nire saietztarte errukarria urratu ta zulotu nairik.

Ozerin'tar Jesus adizkide orri: Ez al litzakigu obe izango, nik parka eskatu, zuk parkatu, tanbolin bete gaztain erreren inguruan alkartu, ta bakea ospatu? Emen gozuz, ba, Biktor ta biok deiaren zai.

* * *

Udalaitz'ek eta Gaztañaga'k izen nagusiai buruz argitaraturikoatzaz natorkizue. «Jonek», izenpetutako idazkia jaso izan dot eta, emen non ikusten dodan neure burua lenengo aldiz makurturik, izkuntza nastetzale jauntxo indarkeri zaleai itaun-galdera egitera bearturik: Andrazkoa ala gizonezkoa dot idatzi daustana? Zergaitik ez, ba, Jone'k, Gotzone'k, Jokiñe'k eta abar, andrazkoa danean eta, Jon'ek, Gotzon'ek eta Jokin'ek gizonezkoak izatean? Txakurren usain egiteakin, buztanpean, arra ala emea dan jakiteko ez gatoz bat.

LANDAJUELA'TAR A.

Bermio

Canarias aldetik gaudelarik, esanbearra dago gure errietako susmoa, usaiña, galtzen dogula. Errudun?: Itxasoan egiten dugun egun ugariak eta albisterik eza, kaiara elduteko egarri eta gogo andia izaten dogu, gure etxeko eta errietako barrien jabe izateko.

Oraingoan Las Palmas'era eldu ondoren beriala artu neban nere emazte maitiak bialdu daustazan AGUR atzeratuak. Guztien artean bat izan jat atsegiñen, Iraillan 30'ekoa, gure Gotzon zanaren argazkia dakarrena. Esaten dot «gure», askoren artean nerea ere zatitxo bat izan zalako, eta irakasle eta lagun bezela.

Gure artetik joan zala bigarren urtea gogoratzeko, idazlantxo baten bidez egiteko ez dot izan almenik, urruti egon gara liorretik-eta, baiña or euki doguz erne, beti bezela zerbait esateko lagun ona zanaren oroimenez, Solozabal ta Arenaza jaunak. Bata, bere neurrieri jarraiturik, olerkari azaltzen jaku, bestea, betiko moduan, egizale.

Josu, ba-dakizu zulango gizonari zelan deitzen jakon Bermio'n? «Cantaclaro». Erderazko itza da baiña olangoa zara. Ipiñi bear dan tokian, ipintzekoa; eta kendu bear dan tokitik kentzekoa. Zuk aitatzen dozuzenak mitotzat artzen dabezen lagun txarrak ba-diraz, eta euren asmoak, a il ostean aldatu direnak be bai, baiña gutxi; oso gutxi.

Mito deitzen jako egi gabeko gauza bateri eta lan arek, Jaunari eskerrak, egi asko ta onak euki zitun bere barrenean. Arek erein zitun azi onen gaiñean, batez ere nere errian, lorategi ederra erne da. Bai Josu, batek baiño geiagok daukie kemena iñor mitotzat ipintzeko, asko egin daben bat, eta norberak zer?

Itz ugari ta aurrera beti. Zure adorea ez daitela iñoiz makaldu olango idazlanak idazteko. Emendik bialtzen dautsut besarkada aundi bat.

RENTERIA'TAR JOSEBA ANDONI

Boise

Ez neuke gura luzeegi idazterik, baiña gauza asko daukadaz zueri esateko.

Idaho Basque Studies Center'en bigarren izpar-eskutitza jaso dogu emen, eta aurrerantzean sarriago artuko dogula esatez gaiñera, ara bertan dakarzan barri batzuk labur-labur:

Izparringi orretarako barri ta idazlanak, emengo edozein euskalduni eskatzen jakoz. Euskaldunen gora-berak; erri, auzo ta alkarteetako barriak... orregaitik orri orren buruan agur au dakar: «Kaixo euskaldun lagunak eta Euzko zalea...»

Lenengo barrian Euskalerri'tik Miren Rementeria'k eta bere lagunak egin eben ibillera-ikasketen barri emoten dausku. Ba-dakigu, emen, Ameriketa'n izan zan Jon Oñatibia argia izan zala guzti orren ardatz.

Bigarren barria, Hollywood'eko etxe batek euskal giroko, artzaiñen bizitza gai dabela, egiten diardun film baten gora-berak agertzen dauskuz. Zati andi bat emen, ego alderago dagon Colorado'n, Cimarron'en maldetan, Elizondo'tar Imanol'ek daben ranch andian artu da. Beste batzuk emen inguruan, eta Markiña'n Navarniz'en eta Gernika'n be. Izkuntza askotan agertuko ei dabe, ludi guztian zabaltzeko asmoan. Antzezlari nagusia Gorospe'tar Jon M. da, eta itzak eta entzungarriak Urruti'tar Jon'enak ostera.

Gero beste izpar pillo andi bat dator: Euskera ikasketak Boise Sate College'an. Mailla bitan, ez dakienentzat, eta jakin arren obeto ikasi gura dabenentzat. Urrillaren erdian asi ta amabi astekoa izango da, danera amar dollar ordaiña.

Lenago, udabarrian bialdu neutsuezan izparretan esaten neutsuenez, Pillota toki zarra barriz zabaldu zan, eta orain, zaletasuna geitu dalako-edo, argiak be jarri dautsoez eta ederto apaindu. Nornaik jokatu lei bertan eta orretarako illean dollar bat bakarrik ordaindu; onetatik, argien ordaiña bete ta tresna barriak erosiko dira.

Urtero, National University Extension Association bazkunak, erakunde onen eta barrizaletasunezkoeri agiriak eskeintzen dautsez laterri osoan; aurten Idaho Basque Studies Program'ak zortzi onenetakoa jaso dau. NUEA orrek, sarituaren erakundea jakintza ta ikasketa ekiñegaitik, baita giza-alkartearen aldeko laguntzagaitik goreztu eban.

Bagillo'ko Euskal-jaian batu gendun dirutza, gogoratuko zaree zergaitik eta zertarako zan. Emengo euskal izateatzaz azterketak egin eta berari laguntzeko, ta amar milla dollaren laguntza aginteriengandik jasotzeko, geuk geure artean beste ainbeste batzen ba'genduan. Ba, ia danori batu zan, eta geratzen dana biribiltzeko, orri onetan bertan, dei bat dator euskal kutsuzko salgai diran gauza batzuk erosteko: Ategaiñetako edo oinpeetarako «Ongi Etorriak», Txapelak, Txistulari naiz Gernika'ko zugaitzaren zurezko irudiak, Euskal-erriti'k ekarritakoak danok, eta emen bertako euskaldunak gertatu dabezan beste gauza polit asko.

Boise'ko Eusko-Etxean be, euskal sukaldeko janari izoztuak, edozein unetan laster baten gertatzekoak: codfish (makaillaua), beef tongue (miña) ta abar salgai ditu.

Ta amaitzeko, il onetan, 25'gnean (urrillean), Bogota'tik etorrita, Abrisketa'tar Pantzeska'k itzaldi bat emongo dau emen, Colombia'ko euskaldunak gai dituala. Eta beste barik, agur, gero arte...


SYLVIA'K

Berriz

Aspaldi makal-samar euki eben gaixo zatarraz, Zelaieta'tar Pedro, Matiena'ko Juan Pedro abadearen aita, il zan azillaren 8'gnean. Egun orretan agur egin izan dautsagu.

Askoren eta askoren ezaguna gendun gure Pedro, gau ta egun ikusten izan dogu bere gela txiki orretan ikerarik egin barik, Jaungoikoarenganako zaletasun beteaz; zein beste gizonik ikusi olako eroanpenaz? Benetan oso gitxi nere iritxiz!

Egun orretan alkartu giñan berakin, azkenengo aldiz, beste lagun batzuekin batera Berriz'ko eleizan. Eleizea guztiz beteta egoan; zenbat jente! Inguruetako abadeak, prailleak eta mojak eta errietako siñistunak, ugari izan ziran aren illetetara etorriak. Meza emoillea bere seme Juan Pedro izan zan, beste zazpi abadekin.



Jente artean, ba-ziran andik eta emendik etorritako euskal-zaleak eta euskalidazleak be.

Bere askeneko berbak, alkarri laguntzea, ta kalterik ez egitea; bakea etxean, bakea auzuan, Euskal-errian eta munduan, izan ziran. Beste zerbait be ba-daukat nere barruan, berak esanikoa ta beteteko asmotan nago. Berak lagunduko dausku egun orretan Zerutik. Murgoitio'ko auzunerako poztasun aundikoa izango da egun ori; bai benetan!

Agur, Pedro, atsekabez beterik utzi dozuz zure maiteak. Jaungoikoaren naia onartzen jakin dabe. Zure emazteai lagunduaz, seme-alabai, ta beste senitarteko guztiai, batez be zure seme Juan Pedro'ri ta zure alaba Maria'ri, aizta karmeldarra, nere samin maitekorra daneri AGUR onen bitartez.

Otoiz bat eskatzen dautzuet AGUR'eko idasle ta irakurleai ta euskaldun zintzo guztiei, berak be erregutuko dau, gu pekatarion alde. Goian Bego!

KARMELE

Tolosa

NEURRIZTIA

Oraintxe jarri da salgai liburu eder au. «NEURRIZTIA» edo Geometria, euskeraz. Kardaberaz Bazkuna'ren ardurapean argitaratu da. Lan onek «Ibiñagabeitia'tar Andima Saria, 1971» irabazi zuan Caracas'en, milla dolarreko saria jasorik.

Liburu au, gure erritar eta apaiz jator dan Luis Egia'k euskeratu ta moldatu du. Lan sakona eta zailla. Patxaras artzekoa. Baiñan gure adiskideak, trebeki menderatu ditu zailtasun auek. Neolojismorik gabe, naiz eta euskera garbia egin, erritik jaso bai-ditu ontarako bear eta egoki ziran itzak, 324 orriko Geometri osca, euskera errezan egiña.

ABESBATZ LEIAKETA

Bukatu zan. Eta auek jai ederrak izan ditugunak! Jende asko ibilli da; azken egunez orratz bat geiago ez zan sartzen Leidor Antzokian.

Zorionetan daude CIT eta diruz lagundu duan Castellblanch Erti Alkartea.

Epai-maiekoen erabakia onela izan zan:

Abots naasikoak:

1.º—Donosti Ereski. *Donosti.*
2.º—Olarra-Begiraleak. *Biarritz.*
3.º—Sta. Cecilia. *Billaba.*

Abots berdiñekoak:

1.º—Coral Leidor. *Tolosa.*
2.º—Deustoarrak. *Bilbo.*
3.º—Lartaun. *Oiartzun.*

Abesti-sortzaille edo konpositoreetan, irabazleak: Donosti'ko Sabadie jauna eta gure adiskide dan Oñatibia'tar Jon, saria erdibituaz.

Zorionak guztiori! Eta urrengorarte.

GALDEZKA

Egia ote da guri «zakillak» deitu eta apaizek eta errosarioak orrenbesteko nazka ematen dion ukranianoak konbentu batean duala bere ogibidea?

Ori egia baldin ba'da...

EGUBERRI TALDEAK

Eguberrietan ateratzen diran abestaldeak eta artzaiandreak dagoneko girotzen asiak dira. An da emen ari dira gertatzen, zenbait errietan esan didatenez.

Tolosa'n, ez det dudarik, aurtengoak ere aurrekoetan bezin ongi ospatuak izango dira. Eta zeiñen alaitasunez jazten diran gure kaleak gaztetxoekin, goizetik, eta gabaz sasoitsu diran gizakiaz, ainbat taldeetan abesten pakeari deika, alaitasuna edatzen...

Ez bai-du urteak egun ederragorik!

UXOLA

Gatika

Agur, adiskide guztioi:

Gaur, kontutxu bat kontauko dautzuet. Au da kontu ori:

Bein baten nekazari bat izan zan, ta semetxo bat eukan, zortzi urtekoa bera. Mutikoaren izena Kepa zan.

Egun baten, ikastola batera eroan eban. Ikastola ori Bilbo'n egoan, Jo eban, aitak, ikastolako atea. Maisuak urten eban.

—Emen nator, esan eban bere aitak, onegaz, ia zeozer ikasiten daben.

Maisuak diñotso:

—Ba-daki irakurten?

—Ez, berba bat bez.

—Bere izena idazten!

—Ez, letra bat bere ez.

—Ba, orduan, lana gatxa dalako, amabi ogerleko emongo daustazuz illean.

—Ez, ez dautzudaz emongo, diru orregaz asto bat erosi neike-ta.

—Orduan erosi eizu asto ori, ta seme onegaz bi euko dozuz!

Agur, zuen laguna dan.

AGIRRETXU'TAR BEGOÑA 13 urte

Gazteak Zer: ¿?

Etorkizunik ederrena gazteetan daukagu, eurak dira gure itxaropena, eurai bidean aurrera egiten itxi bear dautsegu. Maite-maite doguz gazteak, emoilleak, indartsuak, baikorrak eta alaiak diralako. Mundua barriztu nai ba'dogu gazteak gabe ezingo dogu; baiña guk, lengogook, nagusiagook gazteai gauza bat esan genkioe, eurak ez daben gauza bat dogula: bizitza ta asko ikusia.

Uste dot, gaur txalotuaz batera, dei bat, eupada bat egitera beartuak gagozala. Gazteak, zuetariko batzuen jokeran iru utsune ta akats ikusten ditugu! Ba-leiteke zuek konturatu baga, zuen aurka auxe dagola: lenagoko gauzak ukatu ta edestiagaz etenduak zabiezala; elizatik aldendu zareela, ta izketa loi, lizun eta baldarra darabizuela askok.

Gizadia ez da orniduten eta biribiltzen ez egun baten ezta gizaldi baten ere. Gizadiak, pixkaka ta apurka, aurrerakuntzak gizaldi ta gizaldiz lortu ditu. Gizaldi bakoitzak bere onurak ondorengo gizaldieran altzoan jarri ditu, orregaitik oso onurakorra da aurrerakoen aurrerakuntzetan oiñarriturik, aurrerakuntza barri batzuk lortzea. Ori orrela izanik eta edestia ta gure antziñakoak ukatu barik, ikasi ta ausnartu gure edesti zarra ta errezago egingo dozue aurrera.

Tamalez, oraingo gazte batzuk, len ezer onik egin ez ba'zan bezela, dana ukatu ta birrinduten dabiz, euren ta besteen kalterako. Bide latza ta okerra ori mundu barri bat egitekoan.

Bigarren: Oraingo gazte askoren bigarren illuntasuna elizatik urrindutea da. Eliza Jainkoak egiña da, errugea, garbia ta argia; baiña gizonekin egiña danez, akatsduna, gizonak dagozan tokian beti gizonkeriak izango diralako. Ez da txarra Kristo'ren elizea. Berak, erakutsi ezin obeak ditu; berak egin ditu gizon ta andre onenak ezbairik gabe, ta siñismena dogunontzako berak, Jainkoaren Arnas-Espiritua, beragan dauka.

Orregaitik, mundu barri bat egitekoan, egizaleagoa, zuzenagoa ta maitailleagoa izango ba'da, errakuntzarik aundiena ta galgarriena elizea alde batera itxitea da. Gazte asko dira orain, elizearen aurka dagozanak, oraingo munduaren jokereak lilluratuak; baiña alperrik izan asko ta gogor, Jainkoaran aurka ez dira iñor. Kristo'ren irakatsirik baga ez dago benetako mundu barri obea egiterik. Gazteak, ez urten elizatik, baiña, bai barriztatu elizea barrutik, ebanjelioaren muiña artu ta mundu barria errezago egingo dozue-ta.

Irugarren: Oraingo gazte batzuen izakerea izketa loi, lizun eta traketsak lorrinduten dau. Burges eziketearen kontuak dirala-ta, zuek beste izketa loi ori artu dozue. Askok, bai langille, bai karreradun, baita ikasleak be, izketa loi orrekin gizonago ta jakitunago zareala uste dozue. Ez olakorik! Izketa garbia, bata bestearenganako itzala agertu ta anaitasun eta maitasun geiago agertzen daben izketa onuragarriagoa da.

Mundu garbi ta argia nai dogu danok, jarrai dagigun biderik garbienetik. Kontu pizkabat ba'dozue, emen esan doguzan onuakaz, benetan zuok gure itxaropena zareenok, mundu galdu, gogor eta abereen antzeko onen ondoren, gizadi ederrago bat egingo dozue. Beste izate zoritsuago batek argi egingo dautsa gizadiari.

Txarto gagoz. Negar asko; zapaltze asko. Gazteak dozue indarra ta baietzkortasuna. Izan benetako aurrelari, aldatzaille on!

GALLASTEGI'TAR KAULDI

IV Abesti Leiaketa Tolosa'n

Urrillaren 30, 31 ta Azillaren 1'goan, Abesti leiaketa ospatu da Tolosa'ko Leidor antzokian. Guztiz txalotuak eta benetan entzungarriak. Jendea pozik eta gogoz aurrera jarraitzeko asmotan, eta orrek asko esan nai du.

Ba-dirudi, bai, kezka aundia sortu dala eresgilleen artean azken aldi ontan. Batzuek, gure' musikak ez dula aurrera jarraitzeko balio uste dute. Asiera emateko itzaldi batzuek izan ziran antolatzailleak laugarren leiaketa ontarako jarri duten «Euskal Eresiaren Izaera» gaia artuta. Lau eresgille ospetsu izan dira Kasino antzokian: F. Eskudero, Carmelo A. Bernaola, Gonzalez Azilu ta Rodrigo A. Santiago. Zuzendari Jose L. Ansorena. Antzokia beterik entzulez eta goi-maillako jakinzalez. Itzlari ta entzuleak «Euskal eresiaren izaera edo mamia» aztertzen baiña ezin alkarturik. Itz asko esan ziran, eta ori ona da bekoki askotatik odei illun batzuek uxatzeko zerbait. Orretan sayatu ziran:

Emengo arnasa ta gogoa, baserria, laiño goi beltz tankera, Bernaola jaunak.

Txalaparta, txirula, dantza, bertsolarien kutsuan arkitzen dirala zion Eskudero'k. Entzule batek, ongi batu zuan aoakin txistu eginda, aiñ apal eta ederki, artzai baten antzera, txori baten giroan. Denok ontzat, uste det, eman genduala txirula aren mamia.

Berriro ona izango da, atzera begiratuaz, onerako danean ezetsi gabe ontzat ematea. Euskalerriko gai errikoi onetzaz zoraturik gelditu ziran balboatarrak kaputxiño bixkor batekin. Egundo egin dan argitalzerik ederrena egin zioten itzaldi bizi aiei, A. Donosti'ri orduan jo zitzaizkion txaloak bere itzaldia bukatu zuanean. Guridi bat eta Usandizaga beren arte lirikoan sarturik zebiltzalarik, zetorkigun gure kaputxiño txikia beste musika era batekin. Omenaldi batekin ez ote genduke onduko udaberrian emen gelditu dan kutsua?

Resurrección M. Azkue'k egin zuan lanak merezi du oroi bat, asti estuan jaso bearra, aren lanak, musika errikoiaz. Txalopin-txako, Topakantza, aspaldi zorigaitzez ez entzunak eta beste millaka aukerarik onenak. Luxe samar eman zigun A. Santiago'k.

González Azilu'rentzat ez dago eresiaren izaerarik. Bere oiñarria izkuntza gaietan «fonema ta semantika»k ematen dio lan egiteko aukera.

Alkar-izketak bero samarrak izandu ziran. Iritziak ezberdiñak agertu, baita ugaritsu ere. Denontzako guztiz onerako izan dala, uste det, Tolosa'ko billera.

Aurtengo bearrezko abestia «Gure Izkuntza» E. Mokoroa'rena, kemen gabeko edo indargabea iruditu zaigu. Obekiagoak iruditzen zaizkigu: Orra, Orra; Txoriñua, eta Iru Damatxo, maixu Mokoroa'renak. Aukeran zail samarra, baiñan euskal abestiaren teknika izandu du.

«Begiraleak» taldea (ikus «Tolosa» idaz lanean 7'gn orrian nola gelditu diran) apaltasunez, eta nola ez, bere «Goizean Argi» abestuaz zalantzan utzi gaitu. Abots xoilki ta ederraz bakarrik abestuaz. Abesbatz onetan gauza eder bat dago, musikaren liraintasuna. «Donosti ereski», benetasunezko apaltasun eskola goi-maillakoa. Billaba'ko koral ederrak, gertutzaille ona eta gertumen obea daukate. Jon Urteaga'k eresi bearrezkoa agertu zuan. Argitaltze benetan apaiña, goi maillako musikalari artekoa bere «Irulea».

Zorionak idazki onen bitartez abestalde guzientzat. Oñati, Lluchmayor (Mallorca), Santa Cecilia (Donosti), Edurne (Gazteiz), Burgoz'ko abesbatza, Coral Vallisoletana, San Ignacio (Donosti), eta Escolania tiples Colegio Nacional Samaniego (Gazteiz) A. Madina'ren omena, txapeltu gabe aipagarriago deritzagu, Agur Jaunak abestuaz...

ARREGI'TAR ESTEPAN

Itz Dagite

Gauz bi jatorkidaz ordu onetan burura. Billa ez naz joan, berezkoak dira. Ori dala-ta, euren esan-naia azaltzera beartuta nago. Lagun batzuk eta izadiko gauzak izketan asi jataz era ez-bardiñean. Gauzak zentzun geiagogaz itz egiten dauste, noz beinka, lagunak baiña, ta zentzuna lagunei dagokiena dan ezkero, ezpai izugarrian jarten nabe. Nori edo zeri jarraitu?

Lagunengandik «Jaungoikorik ez dagola» entzuten dot. Izadi ta gizadiaren Jaungoiko Sortzaille, maitale ta ongillerik ez dabe nai. Ori mitoa da, noski, eurentzat. Pentsabide ori eurengandik, amorruz kendu eziñik, ikusi ditut batzuk. Baiña ori kendu dabela, uste dabenean, barrua uts-uts geratuten jake ta zerbaitegaz betetu bearrean aurkitzen dira.

Etortekoak, orain datoz. Askatasuna artu dabela uste dabe. Gizon biurtu direlakoan dagoz. Ortik aurrera miñak ez dauka lokarririk ezta griñak kateirik. Edozer esan ta egiteari emoten dautse. Lengo kateiak apurtu dituen ezkero, orain aske dira edozer eta edozelan esateko. Zelan eta zenbateraioñoan iraindu ta geratzen dan urko-laguna, orrek ez dau ardurarik emoten.

Au da mito barria, norbera askekerietan eta besteak zapaltzen; norbere eretxietara, nai ta ez, besteak azpiratzea; norberak ukatu dabena besteei ukatu-erazo nai izan ta orretara beartu dedin alegintzea. Gaurko mitoa da, baita bere, besteen uste onagaz baliatu ta arek euren bizikeran ondatzea.

Lenago, ta orain be bai, diruaren goikeria egon da gizartean. Norbera, ondo egon ta besteak or konpon. Munduaren bizikerea, ondo doala era orretan, uste dabenak, larregi dira. Lagun beroiek, len, beartsu aldian, ta gero, ondasunetan uger bizikeran, oso ez-bardin pentsetan dabe.

Len, errizale ziran, gizartea asko maite eben. Ta jende zeiaren bizikera samiñak min emoten eutsen. Orduan trabarik ez euken euren barruko begietan. Garbi ikusi eikien biziaren muiña. Bizitzea bere senean agertzen jaken, zan legez, Egilleak sortutako bezela. Jaun bakarra markatu eban bidetik ebiltzan. Jokabide zuzenak ta zentzun ganorazkoak bide egiazkoa agertzen eutsen, ta ortxe, zuzena zana egikeran, Jaungoikoagaz bat egiten ziran.

Egiak, zuzentasunak ta maitasunak Jaungoikoa agertzen dabe. Onek dagozen tokian, Jaungoikoa agiri da. Egiz, zuzentasunez ta maitasunez jokatzen daben lagunak, Jaungoikoaren ispillu dira. Irukoitz eder au itzi, naiz zapaltzen danean, ez Jainko antzik, ez gizon itxurarik ez dago.

Ona emen gizonaren edertasuna galduta. Diruz, naiz indarrez norbere burua goratu nai danean, era berean, gizontasuna beratzen da.

Dirua maite dabenak, Jaungoikoa ez dau ezagutzen. Dirua ta Jainkoa alkarren aurrez aurre dagoz, biak batera ezin daitekez onartu. Jaungoikoagana, egiz biurtu ta A maitatzen dabena, ondasun billa ez dabil, ta diru pillatzea ez da aren elburua. Lagun onek beste zeregin bat dau lurraren gaiñean, zeregin egizkoa. Era batera edo bestera, gizadiari on egin nai dautso; auxe da egizko siñismenaren ezaugarria. On dagianak maitatzen dau.

Menderatzaillea be ez da Jaungoikozale. Azpiratzailleak bere urkolaguna ez dau maite. Ori dala-ta, egizko Jainkorik ezin onartu dau. Baiña ori ta guzti be, diruzko, jakiturizko ta indarrezko azpiratzailleak bere goikerietarako ondo datorkionean, Jainkoa onartzen dabela diño. Ta miñezko esatea naiko ete da siñismendun izateko? Alderdi biak, bata bestea onartu bear dabe, ta Jainkoak dirukeri ta zapaltzerik, iñoz ez dau onartzen.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Egiaren Bidez

Egia zintzotasuna da, garbia ta argia. Baiña nun arkitzen da egia bere egitasun osoan, nun zalantza barik ezagutu bear genduken argi adigarri, argi bizi, txingar gori eder ori? Danok dakigunez egia ta guzurra, ona ta txarra, zori ona ta zori txarra, lagun zalea ta bakar zalea, azkatasuna ta menpetasuna, aberastasuna ta txirotasuna, maitasuna ta gorrotoa, argitasuna ta illunpea, iakituria ta iakiturik-eza, gure bideberako artu-emon, ikuste ta ibillietan daurkiguzan goibera, sentikizun ta gizagai ezbardin, on-txarrak dira... Bikoiztasun ori, bata ta bestea, bizitzako mailla, bizitzako goibera, bizitzako zori on edo zori txarrerako iokera oker-zuzen ta, izatez azaltzen dira.

Batzuen ustez ez dago egirik ez guzurrik, dana ei da irudipen bat, norbera bakoitzaren ikuste ta oldozkera. Onela Campoamor españar olerkariak: «En este mundo no hay verdad ni mentira, todo es según el color del cristal con que se mira». Izaditik at, gizona nastua dabil berekoizkeriko bideetan ta, ez dau ezer ontzat artzen berari ondo iagokona besterik... Beti ni, niretzako, neuria, nigaitik; beti, ni eta nitarrak. Bere egiak, guzurrak biribiltzen diardu maltzurkeriz. Alperrik ari da, egia beti izango da egia ta guzurra beti guzurra. Baiña zur, bizi bear dogu ta ikasi bereizten. Azal ederrezko irudipean sarri arkitzen da ustela.

Bizitzan gizona bere egitada ta gauza batzuk goretsi, oneztu, goi-maillaratzen dabe ta, beste batzuk kakaztu, makurrazi ta oinperatu. Batetik ondasuna, indarra, osasuna, baikortasuna, kemena; bestetik aultasuna, illuntasuna, txirotasuna, gogorik-eza, utsa. Batzuetan bakebidezko lagunarte, alkar-girozko bioztasunean murgilduak arkitzen gara ta, beste batzuetan zori txarraren oinpean, ez indar, ez ondasun, ez itxaropenik... artegatasun ta koldarkeriz illunpean barrenduak.

Bai. Aldizka gure biotzetako poz atsegin, izateko gogoz, osasunak damoskun indarrez lagun urkoaz alkartu ta. Izadiaren ta Iainkoaren bidetatik abiatzen gara maitasunez; beste batzuetan, ill ez bizi, gogo aul, negartiz, naigabearen erasoz iges dagigu gizartetik, iges Iaungoikoagandik ta geugandik bere askotan iges. Zertatik datorkigu bizi izatearen poztasun, barruan dirakigun gar txinpartsuaren eragin itxaropentsu ori? Ta, zertatik aultasunez ingurututa bururik iazo ezin dogun tristurazko egoera makal, illun ori?

Batzuetan Iainkoaren irudia dakusgun lagun urkoaren arpegian ta beste batzuetan etsaiarena. Ona emen, batzuetan dantzari bestetan illetari. Zergaitik bizi gaiñezka edo, eriopean ondaturik? Bi izanbide: ona eta txarra. Beraz zelan bardin izango dira ona ta txarra, illuna ta argia! Zelan alkartu egia ta guzurra? Izan beretik sortu ta alikatzen ete dira ona ta txarra? Adar batetik izateko gogoa ta gogorik-eza, aulkeria eta kemena? Iainko biziaren ikutua batetik eta bestetik Txerrendeabruarena. Egun batzuetan gure biotz-begiak alaitasun ta ontasunez mamintzen dira gizonetara ta izadira begiratuz...

Eder daurkiguz inguruak: mendiak, zelaiak, lats, ibaiak, itxasoa, txoriak, lorak ta abar; onberakor ta apal, bai ume ta urtetsuenganako bioztasunez urbiltzen gara ereintza pozgarri baten alkargiro maitez. Gero, ostera ezin dogu iñor ikusi, ezer iasan; ez etxeko ez kanpokorik. Estalki illunez iantzirik gogoa, minberatsu, kezkaz, ezezkortasunean barrenduta bizi gara poztasuna zer dan ez dakigularik. Izadiak ez dau edertasunik. Naste gogorrean bizi gara gaurko mundu ta gizartean, ta eguneroko izparringi, irrati, urrutikuskin ta abar, goitik agindutako erara zabaltzen, emoten dabez beren albisteak.

Zer egin? Zelan ezagutu ona ta txarra? Nori ta zer siñistu? Zer egin bakoitzari berea emon ta artez bide zuzenetik ibil, iarraitzeko? Ikasi bear doguna da geurekiko naikeri ta sentimentuak alde batera itzi ta gauzak, zentzuz ikusi, neurtu, aztertu, zintzokiro erabagiz. Bein bere ez begiratu maltzurkerizko asmo zitalez, norberekerizko betaurreko engaiñagarriz.

Ta, zelan atonduko gara gu egikorrak, ta onak izateko, zoriontsu ta alai, azke bizi al izateko? Berezkorik ez da ezer ta bearrezkoa da alegintzea. Naimen sendozko ekintza garbiz zuzendu pausoak aldameneko lagun egizale, adizkide zintzo ta alkarte onbidetsu, susperkorretara; gizarte ta erriaren alde lan dagien alkarte bidegarrietara. Nortasunez bizitzen ikasi, artezkiro gure bizitzako asmo ta egitada guztiak elburu argi ta garbi, maitasunezko goi-alde eder batera zuzenduz biotza zabalik. Bide onari iarrai, begiak zabalik. Ez loak artu gauzak berez etortzekotan. Onak inguratu, zintzoak, artezak, alaiak, kementsuak, bioztunak ta onen bidez ikasiko dogu ona ta txarra, egia guzurragandik bereizten. Ta orrela gure egunak etorkorrago, gozoago, egunago izango dira ikuste adoretsu, argiaren bide dizdikorrez...

MUNIATEGI'TAR SABIN

AGUR

III URTEA
65 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - LOTAZILLA - 9

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

Bazkunak

Batzarrak dira gure gaurko zigorra. Geroago ta sarriago izaten dogu batzarrerako deia, eta ainbeste batzar astunek zapalduta dago gaur gizona. Gaiñera asieran gagozala uste dot: batzarrak geroago ta ugariagoak izango dira.

Gaur entzun eta entzun gabiltz olako edo antzeko esakunak: Batzarrean dago, batzarrera noa, batzarretik dator, batzarra egin bear dogu...

Batzar oneik askotarikoak izan leitekez: erlejiño-batzarrak, jakintza-batzarrak, gizarte-arazoetarakoak, agintaritza-arazoetarakoak, asazkaldirakoak, jolas-batzarrak... Batzutan goi-maillakoak izaten dira, eta orrei itzaltasuna izaten jake, beste batzuk beragokoak.

Batzarrik geienetan gauza aundirik ez da egiten, baiña genorabako batzarretan ordu asko galdu ta gero, usterik gitxien danean, onura aundiko bat agertzen da. Orregaitik, ez da denpora galdua izaten ezer ez dala egiten uste izan arren be. Batzarrik egin ezik, geienetan, gitxiago egiten da.

Ba dira batzarretan gogaikarri jakuzan gauza batzuk be: batzarkideak ordurako ez eltzea, lenen etorri bear lebenak uts emotea, guztiak batera edo norberaren txandeari itxaron barik berba egitea, berbetan diardun bateri aria ebagitea, alkar-izketearen aria ondo eroateko zuzendaririk ez izatea... eta, batez be, berba egiten dabenak beti berotasun larregigaz egitea.

* * *

Baiña gaurko gaia bazkunak ziran, ez batzarrak.

Bazkunea, elburu bat lortu gura dauan gizon-talde batek osotzen dau.

Batzuk berez sortuak dira, esaterako sendia; beste batzuk gizonak bere gurariz sortuak, esaterako alkargoak edo sindikatoak.

Bear-bearrezkoak dira gizonarentzat bazkunak. Berak bakarrik lortu ezin ditun gauzak asko ta asko dira, eta oneitarik asko alkartu ezkero lortu leikez, ez guztiak, jakiña. Beti geratuko dira gizonaren eskuetan, banaka nai taldeka jokatu, ez dagozan elburuak.

Bazkunak egiteko sarritan gizartean eragozpenak izaten dira. Zergaitik? Eskubide batzun jabe gizonak izatea, beste gizon batzuk nai ez dabelako. Eta esan bearrik ez dago, indartsuenak or be bere legea ezarten dau eta makala indarge geratzen da. Makal asko alkartu ezkero, bear ba'da, indartsu gitxi baiño adoretsuagoak izan leitekez. Ortik sortzen da, sarritan, makalai batzen ez iztea.

Baiña bazkuna-eskubidea gizonaren eskubide argia da, iñork ezin ukatu daikena.

Eta gizonak eskubide ori txarto erabilten ba'dau, zer? Gizonak txarra egiteko alkartzen ba'dira zer egin?

Lenengo ta bein, txarra ta ona zer diran mugatutea ez da erreza. Orregaitik, biotz zabalekoak izan bear.

Gero, Bazkuna-lege bat bear dala be ezin ukatu. Baiña lege onen arauak gizon guztien onerakoak izan bearko dabe, eta ez talde txiki baten onerakoak. Ez onil-legea, norberarentzat zabala ta besteentzat estua. Lege ori eskubide baten mugatzaille dan ezkero, al danik zabalena gura geunke ta izan bear dau.

Eta bazkunetara sartzen diranak, bazkideak, guztiak benetako arduradunak izan bear dabe. Ez ardurak besteen lepo itzi. Bazkide guztiak, bardintasunez, elburua lortzeko jokatu bear dabe: lanak egin, zuzendari-ardurak artu, alkar lagundu...

Izan gaitezan ba bazkuna-zaleak eta ez gaitezan batzargintzan nekatu. Giro obea datorkunerako gertatuta egon gaitezan.

AGUR



Eriotza eta txerren ditut beraz kantagai: gurean ei dabil txerren euskera ikasi nai: nai dezanean esaten ba daki «ez» eta «bai»: ortaz kristauok nasteko ba du bere irazkai.
(Berriz ere Goldaketan, 60, 17 or.)

EUSKAL-SEMEAK ERNAI

Azilleak 19, igandea, an giñan Tolosa'n bide luzea goizetik eginda. Anai euskaldunak, euskerazale ta maitaleak dei egin euskuen, euren asmo ederrak eta aurrerako bearrak azaldu ta gure iritziak emoteko. Baita AGUR'en geure geurea gendun Sagartzatzu'tar Joseba'ren gogo alde mezatan otoitz egiteko.

Amar t'erdietan Mezea, sei apaiz ezagun, Meza abestua, itzaldi samurra, zeu Joseba ziñan lakoa. An, azkenean, zure alaba kuttuna danori eskerrak emoten, geuk berari emon bearrean. Zu, or goitik pozik eta alaitsu zureak eta zure anai-arreba garanok euskaltzalez, emen bean alkartuta zintzo zure bideetatik jarraitzeko kementsu, ikustean.

Ondoren, batzarra, eun eta geiago batzarkide, erdiak baiño geiago gazteak, 30 urtetik berakoak. Maikoen agerpenak, asmoak, egiñak eta egingo diranak ta galdera bat: «GOIZ-ARGI» amabosterokoa, bai?» An entzule giñanon gain ei dago ori egiztea. Nola ete-leitekean ori, entzuleak galdezka. «Zuek idaztera beartzen ba-zaree, bakarrik, guk aurrera» maikoen erantzuna. Ta, entzuleak, bat eginda, deadar baten, «aurrera, ba, amabosterokoa izan dedilla, ta laisterrean asterokoa!»

Ongi ta zeatz eman ziguten maikoak, lenagoko ta gerorako agerbide ta bear izango diranen barri. Sakon eta zearo aztertuta ekarrezan gaiak, berriz an giñan danon aurrean azaldu ta aztertu ziran, izlariak ogeiren bat, beroberoak batzuk, zurrak eta ikuspenez beteak besteak: gaiak, izkuntza, idazkera, dirutza, zabalkunde, banaketa, erri-giroa, etsaiak, lagunak, aurrera bearra, abar eta abar arazo ta ekintza aztertu ondoren: Amabosterokoa, bai!

Luze joan zan batzarra, asko ta aundiak ziran aztertu bearrak, ala ere, an lotu giñan danok, ezin aspertu, ezin laga, dana jakin nai, dana indartu ta ondo lotu. Ta, alako baten, ordu bi t'erdietan-edo, bazkaltzera.

Bazkari apala baiña gozoa ta anai artean oituten dana. Ez zan txanpanik edan burgesak egiten daben antzera, naizta egun ori ezaugarri izango dala jakin euskeraren eta Euskalerriaren etorkizunean. Txistua, bertsoak, itzaldi laburtxoak, eta abesti bakarra azkenean: AGUR JAUNAK... eta laister be laister arte.

Ez goaz izenik aipatzera, an danak bat izan ziran; osotasun batasunezko ederra. Euskera bera maite dabenen batasuna, gure erriaren izkuntza maitea aurrera eroan nai dabenen osotasuna. Euskerea bera zan an bizi-bizi gure artean.

Azkenean, agur alkarri esan arren, atadian ezin aldenduta; eguna bera, aizetsu, illun-nabarra, ta urrutira joan bear, ala ta be, «i, aizak, au ta bestea...» Ordu batak jota eldu giñan etxera, goizeko ordu batak, eta berealan astelena... lana, lana bizi izateko, lana euskereari eskeintzeko.

Ta, zuk irakurle, AGUR'i ta GOIZ-ARGI'ri lagunduaz, ez ete zenduke euskerearen alde lan egingo?

BEIZTEGI'TAR JON

Goiz-argi'koen Batzarra

Lan-egun zoragarria Azillaren 19'gnean Tolosa'n igaro genduna. Eun idazletik gora, zar eta gazte, bildu giñan GOIZ ARGI, gure aldizkari anaia, illerokotik amabosterokora ekarteko asmoz, oztopoak gaintzeko gertu. Danak ez eben joaterik izan; gure idazkaria dan Xabier mungiar gazte trebeak ausi eziñeko oztopoak izan zituan egun batzuk lenago. Dana dala, bere lanari esker, Tolosa'n izan giñan AGUR'eko bizkaitar idazlerik geienak.

Egunari asierea emoteko, eleizkizun ederra izan gendun, Sagartzazu'tar Joseba zanaren gogo alde. Zirkingarriak, bere lagunak izan giñanontzat, Basarri ta Joxe'ren alabatxoak egin euskuezan bertso saio ta esker-agur sutsu ta iraunkorrak. Alako enborrak olako landarak!

Gero, urreko gela baten, lan billera. Garate Aita, Miner eta Murua jaunak lenengotik, ao batez, gure laguntzaren eskeintzea izan eben. Idaz laneri buruz, ainbat iritzi entzun genduzan, danak baikorrak eta onartzekoak. Bat aipatzekotan, Basarri'rena ezin berezitu barik itxi: Idazleok ez dogula erri xea aztu bear. Erria, erria bera izan ei da euskerearen euskarririk sendoena; erri orri emon bear dautsagula aspergarri izango ez dan janaria, bestela, erri orrek idazleeri bizkar emon eta uko egingo leuskiola euskereari, ta orduan gureak egin dau.

Merezi ez dodazan goralpenak bere entzun nebazan erdi lotsaturik. Bateon batek uste izan leikean berez naizela «gerraren zale»... ba, ez. Azken 20 urte oneitan, erdi ixilleko bizitzak erakutsi daustan guztia nere errikideeri azaltzen alegindu naiz, besterik ez... otsoa gure etxe osoagaz jabetu baiño len!

Aurrera doa ba, GOIZ ARGI, ta aurrera doa AGUR. Biok batera joateko erarik ez dogun ezkero —ba-liteke noizbait lortzea— elburuetan eta bideetan alkarren ondoan jokatuko dogu, au da: errizaletasunean, siñismenean eta erriko euskera benetakoaren maitasunean.

Alkarren arteko beste lokarri bat bere izango dogu: Egutegia, eguneroko orridun egutegia. Laister asiko gara euskera garbi, eder eta ulerkorrean egutegi jator bat gertatzen. Etxerik etxe, baserririk baserri, izkuntzearen arnasgarria izango dan egutegia. Batzarrean bertan zan lenengo egutegia asmatu eban gizon aundia: Lopez Mendizabal'dar Ixaka jauna. Geroago, Garate Aitak eta frantziskotarrak artu eben lan ori. Azken iru urte oneitan euskeranto zaleen eskuetara joan da zori-txarrez. Olantxe izaten da mundua; «batzuen izerdiakin besteak diru-egiña», baiña ori bere amaituko da.

GOIZ ARGI'n eta AGUR'en, egutegi au, mordoillokeri orreik baztertzeko erratzik egokiena izango da, Lopez Mendizabal'en oorez eta Sagartzazu'tar Joseba'ren omenez. Aurrera, Ramon!

Euskerearen aldetik, Erri-Bide'ko arauak betetzen alegindu gara. Gutzat ez dago Euskaltzaindirik. Orrek, lengo lepotik dau burua, edo obeto esateko, gerra-osteko lepotik. Baiña, orretzaz, lasaiago ta zabalago jardungo dogu urrengo lan baten. Bere idazkari ta «gizon gogor» danak, oraintzu esan dau: «gazteria gu euskaldunontzat eta gaztedia euzkotarrarrentzat». Beraz, bera ez da euzkotarra (ez eukan aitortu bearrik), baiña gu bai; gu, euskaldun eta euzkotar.

Argi dago ba, guk, ez dogu «hobby» bat edo tresnatzat euskerea artu dabenen edozelako «buru-zapal» kumearen iritzi edo agindurik onartuko. Jarrai beite eurak euskaldunak euskerantoeratzen, al daben artean; guk, euskotarrak euskalduntzen jo ta ke ekingo dautsagu-ta. Euskaldunak, lendik dira euskaldun.

Aurrera, ba, GOIZ-ARGI, ta aurrera AGUR!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

gurasoen abestia

Flamenko tarrena, 1928.

Ez... ez dira,
gure semeen,
anima ederraren,
nagusi izango.
Flandes lurretan,
flamenko jator bat,
bizi dan bitartean.
Ez... ez dira,
gure umetxoen,
anima garbiaren,
jabe egingo.

* * *

Flandes'en,
eguzkia goizero,
sortzen dan bitartean;
gure patrika txiroetan,
bost zentimo,
ditugun bitartean.
Ez... ez dira,
gure umetxoen,
anima garbiaren,
jabe egingo.

* * *

Jainkoari,
lapurtu nai diote,
gure semeen,
anima gaxua.
Baiñan...
gure gurasoak,
siñismenaren alde,
ixuri zuten
odol tanto bat,
gure zaiñetan de-
(gularik.
Ez... ez dira
gure semeen,
anima gaxuaren,
jabe egingo.

Flandes,
gure aberri kutuna!
siñisgabeen zulotegia,
egin nai zaitue!...
Ez... ez...
gure semeak,
ez dira izango,
ez biurri,
ta ez erri-nasle.
Ez... ez dira izango,
gure il-kutxaren,
iltzeak.

* * *

Pozik...
galduko ditugu,
gure ondasunak,
gure bizitza.
Baiñan... anima
gure seme kutunen,
anima,
ori, beiñere ez.

* * *

Gure il-zori arte
gure il-obirarte
gu...
gu guraso fededun,
deadar egingo degu,
karraxi egingo degu,
oiu egingo degu:

«*Ez...*
ez dute anima,
gure semeen,
anima ederra,
beren atzaparretan,
itoko».

«*Ez...*
ez dira
kurutzea duten,
gure ikastolen,
jabe izango».

* * *


Egun auetan, nere kuaderno zarrak begiraka nebillela, topo egin det abesti eder onekin. 1928 urte artan eta ondorengoetan, Beljika laterrian, izugarrizko burruka latza sortu zan, ikastola katolikoak zirala-ta. Odola ere ixuri zan.

Sosialistak eta liberalak ikastola oien aurka.

Katolikoak, bat egiñik, beren ikastolen alde gogor. Azkenian gurenda auentzat. Ez al degu, gaur egun, ikastolak dirala, Euskal-errian, egoera illun ber-bera?

Euskaldun jatorren kemena zuzpertzeko, euskeratu det, flamenkoz idatzita zegon abesti au.

OLABEAGA'TAR IÑAKI



Gozari ta azkariak

Ascao, 12 - 24 90 89 Urrtz.
BILBAO

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

NEURRIZTIA

KARDABERAZ taldearen ardurapean, bere egunean saritua izan zan jakintza arloko idazti eder au eskuratu dauskue. Kardaberaz bildumako bigarrena dogu, EGIA'TAR Luis'ek idatzia. Gaia? Ori gerotxoago, ba, bitartean beste au datorkigu burura:

Or dabiltz ibilli, lotsa barik, guzurretan, eta asmorik okerrenagaz, ikastoletan Jainko-bakoen «h» dun idaztiak erabilli bear dirala esaten, «bestelakorik ez dagolako». Ta ori guzur utsa da. Or dozuez txikiendako «Nora zoaz», Gizasoiña, «Xabiertxo» edo «Jo» (onen salketan arduradun dan praille batek ez dau nai salgai jartzerik, «ez omen dago ongi egiña» diño, «h»rik ez dula esan bearrean. Ta prailletxo ori, ia ziur, datorren urtean zuzendari Zarautz'en. Orain dagon etxekoak, pozik, ba-dijoalako, baiña zarauztarrak, nola?) Ba-dira bai euskeraz, euskera euskaldunean idatzitako ainbat eta ainbat irakurgai eta ikasbide aur eta neska-mutikoentzat, eta laster —ori eskatu dautsegu orretan arduratuei— zerrenda ederra emongo dogu emen AGUR'en danon jakingarri, ta azpi-jokolarien lotsagarri.

Orra ba, orrenbeste esan ondoren goazan, azaletik ez ba'da be, NEURRIZTIA onetzaz barri batzuk emotera. Izenak diñoanez, neurketa ikasbidea da, au da: luze, zabal eta lodieran gauzak neurtu ta ezagutzea; erderaz jeometria. Irureun orrialdetik gora, guretzat orri bat bakarra alperrikoa ta kendu egin dautsagu: VII eta VIII orrialdeak dituana.


Euskera erreza, ondo josia ta jokatua, itzak errikoiak eta garbiak denak, edozeiñek ulertzeko, iñoiz erderaz ikasitakoak obeto ulertzeko bidea. Gipuzkoeraz diardu, errez ulertuko dogu Bizkaia'n bere. Amabi urteko gazteentzat, edo lentxoago asi ta sasoi orretakoetaraiño erabilli legikena. Aurreragoko ikasketak egiteko, neska-mutillen esakerak, iztegia, jokoera ta asmabideak euskeran oiñarritzeko ikasgai ta azalpenak.

Berrogeta bost ikaskai ditu, asi lenengoak lerroakin eta korputz borobillen lodierarte; lerro bizkiak, irukiak, laukiak, makobilla, zokodiak eta abar euren luze, zabal eta lodieran neurtzen, eta orretarako erabilten diran bideak erakusten. Iztegi aberatsa ta erreza, euskeraz ezer ikasiko ba'da gazterik ikasi bearrekoa.

Bai, ba-ditu gure euskera maiteak bere laguntzaille zintzoak...

UBITZA

Eta **zoko-okertua**, **tilkat**-tente ez dauden lerro-zuzenek egiña.
Zoko-okertua izan diteke: **estua**, zoko tentea baño txikiagoa: eta **irikia**, zoko-tentea baño aundiagoa.



(7 gn. irudia)

Orrela (7 garren irudian) ABC/DOG/GOE zoko-tenteak dituzu: DOF zoko-estua, eta FOE zoko-irikia.
Ez da zalla ulertzen, zoko-tente guztiak berdiñak dirala; baiñan adierazi dezagun.

25. AZALKIZUNA.—**Zoko-tente guztiak berdiñak dira.**
Artu ditzagun ABC eta GOE zoko-tenteak (7 garren irudian); eta jarri bata bestearen gañean, B-kantoia O-kantoiaren gañean, eta BC-mugaldea OE-mugaldearen gañean.
Orduan, jakiña, BA-mugaldea OG-mugaldearen gañera letorke; bestela beste tokira (OF-ren gañera adibidez) baletor, zokoak ez lirake (diran bezela) tenteak izango.
Ortaz BA OG-ren gañera datorrelako,
ABC=GOE dezu (GOE-ren neurriko dezu. Edo alkar-berdiñak dituzu).

26. Zoko-osagarri esan oi dira, biak zoko-tente BAT osatzen dutenak.
Eta **zoko-betegarri**, biak zoko-tente BI betetzen dituztenak.
DOC/COB zokoak (6 garren irudian) alkar-osagarri dituzu.
AOD/DOB eta AOC/COB zokoak, alkar-betegarri.

27. ONDOREA.—**Bi zoko (osagarri berdiñak edo betegarri berdiñak baldin badituzte) alkar-berdiñak dituzu.**

POZAK ETA KEZKAK

Besterik ez omen da

«Hatxezale» peko konsigna dunen adimenean ez genuen uste «itsumena» ain barruan sartu zietenik. Alako batek, «euskal» liburuen «propaganda» egiten, Donosti'ko astelenetakoan, Etor, Hegatsa... ta Lur saillekoak bakarrik aitatzen ditu. «Prailletxo» orri, kristau-ikasbideak erakusten diguna aztu egin zaio: Ezin ditezkela irakurgai txarrak zabaldu... Ara nola Russell, Hussley, Sartre, Engels eta abar. Eta au gaitz erdi dala esaten ba'du iñork, okerrena da, beste zenbait, eta onenak, ez dituala aitatu nai izaten... EDILI, EKIN, KARMEL, KARDABERAZ, KULIXKA-SORTA, AUÑAMENDI ta ENCICLOPEDIA VASCA argitaldari etxeak agertu dituzten liburu txukun eta ederrak. Baiñan ez dute oiek bakarrik erru...

* * *

Alperriko karneta

Ganorabakokeri aski egiten izan da; gaur geiago. Oietariko bat, Euskaltzain batzuk eratu dituzten «irakasle examiñetara» joatea da. X. Garmendia ta Ukranianoa maiko direla, zer nai dezu? «H»a bitarte dela, Bilbo'n berrogeta lautik, ogetalauri eman diete zorioneko bitxi ori, ta aben artean, ikusi genezakenez, euskeraz «ezin-esana» geixoa duten bat baiñon geiago dira, baiña... «h»dunak! Karnet orrek ez du ezertarako balio, Euskaltzaindia ez deiako iñor —IÑOR!— euskaldunak berezitzeko. Alfonso Irigoyen eta Patxi Altuna «konparsa» egiteko gai izango ziranik ez gendun uste. Dena dela, karnet gabe geratu zeratenok, zuek zerate errudun: Ez zenuten zertan joanik izan-eta.

* * *

Alienatuak

Ez aiztu euskaldun gurasoak! Naizta ori orrela ez dela, ortik eta emetik entzun, H'a, sortzean, Krutwig marxista-leninista azalez beintzat denak, euskera ta kultura iraultzarako asmatu zun «bandera» dezute. Ori, jatorriz alemana, euskaltzain osokoa egin zuten —guda ostean izantatua— ta emen burgues bizitza lasaia eraman ondoren, beste aldera iges agin zun itzaldi garratz bat egin ondoren. «Vasconia» liburuaren egille dela denok dakizute, euskotarren iraiñez jositako liburuaren egillea. Eta «Ukronia»ren egillea, uraren «hijo espirituala», euskerantoz esanda. Biak, «bandera»ren abanderatuak!

* * *

Ikastoleri pakea!

Iñoiz, AGUR ontan, idazleren batek, argia emateko asmoz, ikastolak aipatu ba'ditu, entzun bear izan ditugu, aurretik nai zutena egin dutenen asarrealdiak. Orain baiñan, aldizkari guzietan, ixilleko orrietan, nolanaiko astakeri salatariak irakurriko dituzu. Onerako?, Txarrerako? Oker aundiren bat sortzen ez ba'dute, ongarriak gure iritxiz: Zein zein dan jakin genezake-ta. Eta orain zer?: Ixilleko (ta nolakoak) oiek ez ote dira kaltegarri?

Urrilleko 25'gnean Iñigo deritxoanaren T. V. saioan, gauza polita entzun genun. Osvaldo Rossler abeslariak, bere abesti baten «odio las h's por inútiles» esaten zun. Erreaksionarioa ote da au ere? Euskaltzain batzuk entzun ba'lute! Gaur, euskal-ereserkitzat-edo artuko zuten.

PIPER-ZIRI

GAZTE

Landara Gazteak

Landara gazte ta samurrak ba-daukodaz; egunero ura bota bear izaten dautset ederrago ta aundiago egin daitezan, otzetatik kendu. Bestela, ur barik eta otzakaz agortu ta erre egiten dira.

Gure errian, landara gazte, eder eta onak dagoz, bai... Baiña mundu onek ura ta eguzkia kendu egiten dautsoe. Gazteak, euren barruan elburu batzuk euki bear dabez, baiña gizarte onek gazteen buruak utsitu egiten dautsez eta olan jazoten iaku zerrautsik be ez daukeela buruan.

Gazteak beti wiskietan eta andretan pentsatzen egotea penagarria ta tristea da. Noizean bein ioatea guztiz txarto ez dagola uste dot, baiña beti-beti... pena emoten dauste; negargarria da.

Euskaldun landarak agortuten olantxe goaz, astiro-astiro, baiña biztuten ez ba'gara amildegira, barrankura goaz, ori ikustea baiño iltea oba dogu. Gure Erriaren bidea ez ba'dogu ikusten, ez gara gizonak.

Nun daukagu gizontasuna? Bildurragaz etxean itxi dogu; orain, gizonkeri usteletan baiño ez gabiz. Taberna bazterretan moskortuta gagozanean, gure landara gaztea orduan azten da, baiña ez uragaz ardoagaz baiño, ta on egin bearrekoan, kalte egiten dau, ori piztiak bere ez dabe egiten, ta gizonak...

Nere erriko landara gazte biotzekoak, ez itxi ur loiezko erreka onek itxaso aundira eroan gagizan. Bakoitza bere nortasunagaz, danok batuta, beti aurrera!

IGORRE'KO IRRINTZI

ARGI-ONTZIAK

EMOITZGARRIAK

EREDU BAKARRAK

ALBERTO URRUTIA GOTI

Ribera, 19 (Pelota, 1'en ertzean) 21 14 89 Urrut.
Carnicería Vieja, 8 - 23 56 25 - Urrutizkiña. **BILBAO**
Santuchu, 16 - 339491 - 333123 - Urrutizkiñak

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 38
21-15-07 urrt. **BILBAO-5**

Basoko Bidea

Egun grisa... ostoak erortzen pixkanaka... Gu ere laister eroriko gera.

Basoko bide basatian, zuaitz orioriak. «Zeruan illun; laiño goiko mendian...» Bide beltz izkutuan, pakea, ixiltasuna, txirotasuna... bakardadea. Kanposantu xinple, pobrean, berdiñ. Erioa oso da pobrea!

Bai, illen eguna ondo bizitzeko —baita ere biziena— ondo ta sakonki, paisaje bezela, erri txikietara joan bear da... Gaztelu'ra, batez ere! Erri aundietan, Donosti'n, zer zarata, zer iskanbilla, zenbat txorakeri!: Kotxeak, koroiak, jendea... berriketa.

Emen, Gaztelu'n, ezer ez. Illak bakarrik eta ixillik. Biziak ere bai, askotan! Zein bertan eta zein urruti gauden ildakoengandik! Bertan, or aurrean ditugulako, urruti, oso gaiñera nunbait ikusten, sentitzen ez ditugulako. Ain urruti al dago beste mundua? Arrospe bezin bertan; Aralar bezin urruti.

Nik ala uste det beintzat. Uste...

Udazkena, olerkiaren giro eder eta triste a! Gure biziaren illunabarra, bene tan? Zein girotan asiko ote da Zeru'ko Bizitza? Ta bitartean, gure bide beltzean ostoen erortze ixil, apala... tristea. Osto bat erortzen danean, ez da geiago itzultzen. Ildakoekin bardiñ gertatzen da!

Zergaitik il dira? Zergaitik daude or, lur otzean, koroi zimelez estaliak? Zergaitik gaude gu emen, bizirik? Zergaitik ura? Burruka gorrian gabiltza, mutur joka, bizitzeko ala iltzeko? Bai, maite det illen Pakea, Illena, baiñan ez det nai olako pakerik bizirik daudenentzat!

Beste mundua, problema aundi bat denentzat... ta ez misterioa... poza ere bai. Bai, arrazoi aundia du Orixe'k esaten duanean (ikusi, «Jainkoaren Billa»).

Sentiduak, irudimena, jakinduria ukatu egin bear dira. Fedearekin naiko da. Jainkoa Espiritu utsa dalako. Siñistu ta Fedea bizi, ara or korapilloa!...

Beste Mundua, Zerua, Arridura Aundia, Artetxe'ren iritxiz! Ta, Alaia gaiñera!

MATXIN

EUSKAL KULTUR MINTEGIA'k antolatuta, il onen 11, 12, 13, 14 ta 15'gnean, Deusto'ko Ikastola Nagusian dan itzaldi-aretoan, BIZKAI'KO LEGEDIATZAZ **ikasketa bereziak izango dira. Izlari ADRIAN CELAYA jauna, erderaz. Ordua 7 t'erdiak.**

Otxando Margolaria

Bizi, Bilbo'ko Deustu'n bizi da. Jayoa Alicante'n. Jatorriz, urrean euskotarra. Au dogu Oxtando'tar Saulo margolaria. Mutil on eta begikoa, erromantiku ta lagun-zalea. Nire aspaldiko adizkide ta ezaguna da, augaitik beragaz alkar-izketea izan dot:

—Zer diñostazu orain bizi zaran Bilbo erri onetzaz.

—Bilbo, erti-lan giroko erria da. Nire ustez, iñun ez dira ertilanak Bilbo'n aiña aintzakotzat artuten. Nortasun sakona; gogamena, antxiñako kultura barrenetan aberastua; olerkaria, bere izatez; ori da Bilbao. Margolari ospatsu Arteta zanak, batez be, emengo kultur aberats sakona adierazo ta dizdiratzen dau.

—Zuk, zeuk ez dakizu euskerarik. Baiña zer deritxazu euskereari. Zer da zuretzat euskal izkuntzea?

—Niretzako, euskerea, erri zintzo antxiñakoaren adierazpen sakona da. Atsegingarria yat. Entzutean, bere doiñuak, gizonkiz eta, batera, eztitsuz ots egiten daust belarrietan. Doiñua margoztu al ba'ledi, euskerarena nire erti gaia izango litzake.

Euskaldunen gauza ugari, orraitiño, margoztu dodaz: Nerbion itxas-adar luzea bere uretan dagozan eta dabiltzan itxasontzi, kabar, txanel itxusi ta politak, bere basterretako ontzigintza lanpetu ta zaratatsuak eta ol-lantegien kezulo asko, andiak beti kea darioela. Baita Gernika ta ango «Arbola santua, euskaldunen artean guztiz maitatua» be.

—Orrelango lauki margoirudiak erosiko dautsuez, edo saluko dozuzala emen uste dot.

—Bai zorionez, eta beste muetarikoak be bai. Orain aldi luzea ez dala, Madrid'eko Gaurkotiar Erti Erakustokiak —Museo de Arte Conteporaneo— neure lauki bat erosi eustan: «Udabarrian madariak». Margoirudi au, barri-irudizko, erderaz, neo-figurativo deituten yakon Europa-erdi aldeko ikastol-artekoa da.

—Saulo, adizkide, zelangoa izan zan zure bizierea? Zelan etorri ziñan Bilbo'ra?

—Bilbotar batek Bilbo'ra etorri nintela esan eustan, eta ni etorri. Lenago, an, suzko lanzantar baten bearra egiten neban, lau laurleko eguneko irabaziz. Gero, arregi ta kaietan, alober apur bat obeagaz. Amazortzi urte neukazala, Alicante axpearteko gazte doakabe aldrearen buru, barren-berreneko sugar matxinraulketazalez ta maitasun bearrez. Sastegi baten aurkituriko liburutik ikasi neban irakurten. Lagun batek zenbatiztia irakatsi eustan. Ez yat atsegin, ez besteen aginduak ez esanak agiterik. Orain ere ez... Gizonak bere buruaren jabe izan bear dau.


Oraingoz nire emaztegaia, Erti-lana da. Baiña esker-oneko lez, autortu bear dot, Llagunotarrak abegi ona egin eustela. Euren estalpe ta babesean iñoiz ezagutu ez dodan maitasuna idoro neban, Bilbo'ra etorri nintzanean.

* * *

Otxando'tar Saulo'ri, Castellblanch ikaste-saria edo bekea emon dautse. Au artuta Erroma'ra abiatu zan bere Erti-teknika ta ikasteak obeagotzera. San Giovanni kalean, margolari ta zizelketari ospatsua dan P. Tito'ren lagun egon zan. Saulo, era berean, margolaria ta zizelketaria da. Erroma'n, izendatutako P. Tito'ren lanak ez ezik, Bruno Landi'ren margokiak eta Fano Fernández'en zizelketak be ezagutu dauz. Picasso'k Italia'n daukon indarra, batez be zizelketan, ikusi al izan dau.

Joan dan udan, ez dau Saulo'k opor-aldirik izan. Sari-beka orregaz, Erroma'tik Eskandinabia'ra ibilladia egin eban, geiago ikasteko asmoz. Bruno Landi'k esan ei eutson, bestelango errietako erti sortarazien ardurea, izatea ta kezkak jakin gura baebazan, ara joan bear ebala.

—Asmo agertze onek —diñost— arduratu ninduan, gaurko margolari ta zizelketari onentsuen lanak ezagutu gura nebazan-eta. Izan be, ara eldurik, Egon Fisch'eren eta Atlan'en erti-lanketak erasan, biotz-ikaratu ta atsegindu ninduen. Orain, poz-pozik nabil nere bizi-bide onetan. Nire eritxiz, Jaungoikoaren berbea lurrean adierazten dauan olerkaria, margolaria da. Elorrieta'ko ikastegi - lantegian aurkituko nozue nire jardunetan. Azkenengo egin dodan nire lana, Francisco Greña'ren (G. B.) giza-irudia, soingaiña izan da. March'en ikaste-sari bekarako aurkeztu naz. Eta orain, berbea emona nago ta betebearra daukot, Deustu'ko Pasiotarren eleizan Gurutzebidea egitea.



—Bai, Otxando lagun, ori bai izango dala Ertilari benetakoaren agite ederra.

LETONA

Nere Bordatxotik

Len ere iñoiz «Izazpi» jaunaren bertsoei toki eman izan diegu; artaz mintza izan gera. Apaiza da «Izazpi» jauna, baiña apaiz bertsolaria. Eztakigu aotik egiten duen ala ez, baiña bai bertsojartzaille ona dala. Zartzaroak berekin dituen komeriak agertzen dizkigu. Ikus nolatan:

Zer tristea dan, jaunak,
gizona zartzea,
irurogei urtetan
barrena sartzea.
Eziñaren mendean
derrigor jartzea,
berriro ume baten
itxurak artzea,
orduan ikusten da
zer dan baztertzea.

Agure bati entzundakoak moldatu ditu bertsoz «Izazpi» jaunak. Ondoren datozenak ba-dute euren esanai sakona. Gogoan artzekoa, noski.

Gazte txoroentzako
orra, abixua,
danak siñistutzea
ezta prexixua;
ezperientzi duna
daukagu maixua,
onela mintzatu zait
agure gaixua:
«zuk eztakizu zer dan
urtien pixua».

Lan astunetan lertzen
sasoi onenean,
gero seiñalatzen da
gorputz barrenean.
Orrela gertatutzen
zaigu geienean,
erretiroa eman
azken-azkenean,
dibertitzeko kapaz
ez geradenean.

Izan ere, bein 65 urtetara ezkero, dibertitzeko gogoak aldegiten dute. Gazte denboran bururatzen etziran oiñaze, min eta aje guztiak pillatzen zaizkio gizon zarrari.

Gorputzean keja ta
miña ikusterik,
orrelakorik ezta
pentsatzen gazterik;
esan gabe eztago
auxe siñisterik,
len osasunez eta
indarrez beterik,
eta orain ezraukat
ajea besterik.

Ba-da oraintxe aurrerapena pranko, ango ta emengo. Zarra gaztetzeko aurrerapena ere sortuko dutela diote. Barkatu, jaunak, baiña auxe eztegu siñisten.

BASARRI

JA, JA, JA, JA!

Umore ona ta eziñ. Amazortzi urtera eldu nitzemien, lotzor-lotzorra nitzen. Kape-toki, jende aldra, edozer jai ba'litz, aurretik ibiltzeko ez nitzen iñor. Lotsaz, bildurrez beterik, nire bizibidie e'zan gozue.

Orreta gauzak, Donostia'ko eguneroko baten ikusi'ot, «Cantante Amateur» deixe. Ordureko Xemeiñ'go eta Karmen'go eleizetan enterru mezak, Perosi'n Entinterunek, Tremen fatususok eta abar egindekue nitzen. Beko abotsa, «bajo profundo». Neure ustez, geixen be ardauaren inder bosa. Karmeldarren eleizan be makiña bat arrantza... «Ezeizu olako zaparradarik ata, dipuntue jaikiko da-ta». Esate'ben koruko lagunek. Beste oberik ez zan-da, neu nausi. Artietan «musikie» ausi.

Len esa'oten lez, irakurri dei ori, Donosti'a juen, «Diario Vasco» egunerokuen izen abizenok emon, dana batera ta aurrera. Golondron zan derrigorra, Maruxa izeneko operakue, Vives maixuek egindakue. Urrengo Sorozabal'ek eratuteko Tabernera del Puerto, beko bosan: Esnatu Baltza (Despierta negro), Black el Payaso ta abar... luzie.

Ikesi egin bier ba, onek zartzuelok. Orretarako gramapono zar tutusoiño bat jirau dot, zartzuela onen errobera-plakakiñ. Emon inderra, dranba-dranba, pareteko erlojo zarrei lez. Ta or azte'zan arrantza ekiñ aldizoi. Jardun-jardun, atzenez, nire etxe bizitza inguruko guztiok agertze'zien kale-kale, kanta-kanta zartzuelok, bai ondo be ganera. Nik, deusik pez. Nire asto belarrixok, onak entzuteko, baiña gogorrak ikasteko.

Aitxe Emiliano zan orduen Karmeldarren organiste. Jakiñe, berana jo bier ba, zozer ikesi edo!... Jo ta su, Aitxe Emiliano tekla-piano, eta neu, albuen, jota su. Zartzuelok astintzen genduzan bai. Eldu zan Donosti'a joateko bixperie. Teatro Kursaal zan toki ori. Ordubatzuk bakarrik palta. Tamaiñuz, justujustuen nekixen zozer; oixe, zozer...

Ganera, «escala cromática» izen zorrotza euken eran egin bier barre-algada bat, goitxik bera kanta-kanta: «Ja, ja, ja, ja!... Neuk beintzet eziñ, ezelan bez, eziñ ba.

—Aitxe Emiliano, au, Ja, ja, ja, ja... au eziñ dot egiñ ondo...

—Ez estutu, Juan Joxe, ori «publikuek» egingo dau ederto...!

Alan izen be. Baiña... zer? Nire lotsak... kanpora betiko!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA «MARKIÑA»

IKASTOLAK

Euskalerria'n aspaldiko urteetan sortu izan jakun gauzarik ederrena IKASTOLEA da. Ardaorik onena «biñagre» garratzena biurtzeko arriskua izaten dan lez, Ikastolak Euskaldunon buru-auste mingoitsa izatera elduko dira, zur jokatzen ez ba'dogu. Sortu diran Ikastolai eutsi ta barriak ipintzen ardura artzea, euskaldun guztion zeregiña izan bear leuke.

Eskubideak

Ikastola arazoan, GURASOEN, UMEEN eta ANDEREIÑOEN eskubideak gogoan artu ta bere maillan zaindu bear dira. Joko au tolesgera gaitzekoa da. Benetan zeregiñ zailla.

Ikastolak gurasoen izerdiagaz ordaintzen dira. Gurasoen aske-guratiz bialtzen dira umeak Ikastola onetara edo aretara. Gurasoen agintapean Ikastolak zaindu bear dirala kristauak ezin legike ukatu. Kontrol ori gurasoak era askotara eroan leikee. Esate baterako andereiñoen eskuetan euren eskubideak itxita, delegauta. Edo eurak kontrol ori euren eskuetan arturik. Edo ta gurasoen eta endereiñoen arteko kontrol batuan.

Umea

Umeak deretxua dauka Ikastolak bere, umearen, gero-bizitzarakoa aal danik ondoen gertau dagien.

Ikastolan umeak «opziñoak» ikusten ikasi bear dau, egun baten asketasun guztiagaz ERABAGIAK artzeko gertu egon daitean. Ipar Ameriketa'n, esate baterako, ainbeste errien nastetik filosofi ezbardiñak etxean bertan agiri dira.

UMEAK eskubidea dau azi-bide osoa artzeko. Erlejiño ta Etika alde batera izten dituan ikastolak, umeari tranpa egiten dautso. Erlejiño ta Etika bat besteen ganetik irakasteak ez dau esan gura orrein barri bakarrik umeari emon bear jakonik.

Andereiñoak

Gurasoen ordezko dira ikastolan. Umeakgan, gurasoak emoten dautsoen beste eskubide daukee, ez geiago ez gitxiago. Gurasoak dira ZER irakatsi bear dan esan bear dabeenak. Andereiñoak ZELAN irakatsi jakingo dau ZER ori.

Guraso-andereiño

Artu-emonak zintzoak, sakonak eta jarraikoak izan bear leukee. Artu-emon oneik aurrera eroateko bide asko aurkitu leikeez. Bost urteko esperientziak irakatsi daust Ipar-Ameriketa'n, gurasoen Maian andereiñoak sartzea ez dala onena. Maikoak itz egiteko asketasuna galtzen dabee. Sarritan ez dira ausartzen «kejak» agertzen andereiñoen aurrean. Maikoak euren batzarrak euretara egiteko eskubidea daukoe ta ori olan nai ba'dabee, zaindu ta garantizatu bear da beti. Maikoen batzarra amaitu ondoren, Andereiñoekin euki leikee beste batzar bat. Edo aurretik. Andereiñoak bere, euren batzarrak bakarrean, euretara egiteko eskubidea daukee gurasoak aurrean ez dagozala. Ori ezin leikioe ukatu.

Elizako Ikastoletan

Ume bat ikastolara, ordaintzeko dirurik ez daukalako, joan barik edo joan eziñik aurkitzen dan arte, Mixio-lana, iñora joan barik, bertan daukagu. Dirua zeri emon be bai, kanpora bialdu barik. Erbesteko premiña orrek aundia izan bearko leuke, etxekoagaz aztu ta kanpokoa laguntzen ibiltzeko.

Mixiolari larregi izan ditugu orain arteraiño, euskeraren eta Euskalerria'ren eta euskaldunen alde pausu bat emoteko izan ez diranak, baiña beste erritar batzuekaitik bizia arriskatu dabeenak.

ERREKALDE'TAR DEUNORO

txirrindulari nagusiak

Goddet jaunaren iritxi batzuetatik aterata:

«Sarritan egin dauste galdera ezagun au: 1930'gnetik txirrindulari guztiak ezagutu dituzunez, esango leustakizu nor izan dan onena?

Gaizki jarritako galderea ori, kirol bakoitzak bere ertzak izaten ditu, ekintza bakoitzak bere berezitasunak. Zailla da benetan, adibidez, abiada utseko gizonak, bitxabaletako luzean jokatzen dakitenekin alkar-neurtzea, edo luzean iraunkorrak diranak aldatz-goralariekin. Scherren, Schulte, Van Looy, Gaul..., gaiñekoak izan ziran benetan, baiña Coppi, Koblet, Bobet, Anquetil eta Merckx'en neurrietara eldu ez ziranak.

Azterketa sakon batetik atera daikegu, iru izan dirala goren-gorengo:

FAUSTO COPPI

Amabost urte luzeetan gorengo maillan iraun al izan eban. Ez zan iñor, ez lau ez aldatz aundietan, Fausto'ri eusteko aiñakorik. Ori ta aldiaren aurkako bakarketalari ederra zan. Mendi gorako igeskadan jartzen zanean, Fausto'k bigarrenari ordu laurdeneko aldia ateratzen ekian.

JACQUES ANQUETIL

Au bai izan dala ordulari lasterkaria. Urreratuko jakonik iñoiz izan ez eban «Erriarteko Sari Nagusi»an izan ebazan bere bederatzi garaipenak argi erakusten dauskue orrenbeste. Ta, «Tour»eko bost lenengo sariak, lau errezkadan irabazi ebazala, txapeldun-gurena izatea lortu eban.

EDDY MERCKX

Nere iritxiz (Goddet'ek diño), Merckx belgarra dogu gizandi onein artean osotuena, beteena. Goraka, lauan, azken abiadan be, indartsua da, danean bizkorra ta azkarra. Ta, ezin doguna aaztu, 1945'gngo Bagilleko 17'an jayo zala, beraz, ogeitazazpi urte bakarrik ditu orain.

Merckx, aldi guztietan onena; era guztietan onena; bizibidez diarduenen artean «amateur»ena.

Ta jaun jakintsu orrek diñoanari, gure aldetik, iru gizandi onein garaipenak jarriko ditugu emen:

LASTERKETAK	COPPI	ANQUETIL	MERCKX
«Tour»	1949-52	1957-61-62-63-64	1969-70-71-72
«Giro»	1940-47-49-52-53	1960-64	1968-70-72
Lombardía	1946-47-48	—	1971
Milán San Remo	1946-48-49	—	1966-67-69-71-72
París-Roubaix	—	—	1968-70
Baracchi	1941-53-54	1962-65-68	1966-67
Erri-Artekoa	1946-47	1953-54-55-56-57-58-61-65-66	—
Ludiko txapela	1953	—	1967-71
París-Niza	—	1957-61-63-65-66	1969-70-71

ERRAZU



AIZKORA - JOKU GOGOANGARRI BAT

Bai orixe, gogoangarria izan ere, azillaren 12'an. Azpeiti'ko zezen-plazan ospatu zana. Bertako gazte biren arteko neurketa bikaiña, ain zuzen.

Alde batetik, Jexux Olaizola «AGIETA» loiolatarra. 24 urte, 76 kilo ta 1m76. Bere erakusle: Exteban Saralegi. Laguntzaille: Migel Iturrarte. Kanaerdiko —54 ontzako— amar enbor zituen autatuak eta plazara aurkeztu bearrekoak. Berauetatik iruzpalau gogorrak aterako ziran.

Bestetik, Juan Alberdi «URRETA» izarraitzpekoa. 27 urte, 80 kilo ta 1m74. Bere erakusle: Krixtobal Lazkano. Laguntzaille: Juan Mari Gorrotxategi. Oinbiko —72 ontzako— bi enbor aurkeztea zegokion, eta berariz ezin gogor eta bigurriagoak aukeratu zituen.

Berauen arteko leiatasuna aspalditik zetorrelarik, ikuskizun soil bat baiño zertxobait geiago eskeiñiko ote ziguten ametsez artu nuen plazarako bidea. 150 laurleko ordaintzen zan sarreragatik. «Eun-irurogeiri» eskeitzen zan loiolatarraren alde, ots, «AGIETA»ren alde.

Talankeren gaiñean eta lerro bitan ezarririk agertzen ziran egurrak. Esku bakoitzean kanaerdiko bost enbor eta oinbiko bat. Ate nagusiaren ikusbegitik begiratu ezkero, aurren maillan oinbiko enborra ta 54 ontzakoak errezkadan. Oinbikorik bigurriena eskubikaldeko lerroan zegoen. Ostera, kanaerdiko enborretatik zaillenak bestaldean. Batez ere mutur-muturrekoa. Egur bi auetantxe erabakiko zan jokua. Bein eta berriz ere gauz bat ongi egiztaturik gelditu zan; alegia, egurren nolakotasunak zenbateraiño eragiña dukean aizkora-joku baten erabakian. Aatik ba'da, jokokera ontan «markak» aipatzeak eta alderatzeak ez du bat ere zentzurik. Ebaki-ala ikusten bai'da egur bakoitzaren egiazko zailtasuna eta ez aldez-aurrez. Ona emen joku onekiko agerbide bi: Txanponak «URRETA»ri eskeiñi zion egurren aukera ta, ala ere, egurrik bigurrienak berari egokitu. Bestetik, baikorrenek ere ez zuten asko uste 50 miñutuz azpitik lanak amai zitzaketenik. Eta 45 miñutu ta 50 segundu besterik ez zizkion artu izan «AGIETA»ri.

Eta onenbestez goazen neurketa zoragarri onen gorabeerak azaltzera. Eguardiko 12 t'erdietan, juzgalaria asteko agindua ematera zijoan bertantxe begiraldi bizkor bat jaurti nion biribillari. Ez genduen asko uste erri barrutiko apustubatek ainbeste ikusle erakarri bear zuenik. Inguru guzia ikuslez arturik; bakan, eta utsune batzuk kontuan edukirik ere, bi milla lagunetik gora enebatxoa! Ori bai, aizkolarien beraien jarraitzaille leialenen deadar pizgarriez landa, iguripen ixilla nabaitzen nuen. Erdiko ta otz xamar ikuslerik geienak. Zerua urdin aizea bare ta eguzkia epel ikusle geienen gisa.

Neurketa aurrera zijoan arabera, ordea, aizkolarien joketa beroak eguzkia kutsatuko zuen eta beraien leiatasun arrigarriak ikusleen artekoa piztu arazi. Orrezkero trabezak, jarraitzailleen gogoak, iñoren aurrezusteak eta denborak enborrez-enbor zillipurdika. Leikide biak, berriz, gero eta sutsuago beren arteko borroka beldurgarrian, izardi ta pats, atsedenaldirik laburrenik ere bere burueri opatzen ez ziotelarik. Eta ikusle soillen zoramena... Alakorik!

Lenbizikoz leikide biek enborren «ipurdi» aldeak ebaki zituzten eta bigarrengoz «punta» aldeak.

«AGIETA» gaztea, dana zain, giar eta kirio, ezker aldeko lerroan asi zan, eta barrukaldetik. Bere egikera bizkor eta gozoaz barrulanetan geienbat aurreratzen zuen. Orrez gaiñera, errurik txikienik gabeko epaiak tajutu zituen, goren maillako aizkolari baten jakinduria ta trebetasuna erakutsiaz. Erakusleen eragiña ere zertxobait nabaitu zan, berarentzat unerik larrienetan ere gogotsu ekin bai'zioten.

«URRETA» bikain eta indartsua, antziñako aizkolari sendo sakonaren irudi, eskubi aldeko lerroan asi zan, eta kanpokaldetik jardun zuen. Ezkerreko eskua aizkoraren kirtenean zear irristaraziaz, eta aizkorakadak goi-goitik tajutuaz, sekulako gaiñezpal mardulak atera zituen. Barrulanetarako, ala ere, bestearen bizkortasunik ez zuen agertu. Eta egur bigurriaren zailtasuna epaian barna areagotzen dalarik, bi enbor zaillenen barrulanetan ondatu zan mutilla bereziki. Egia da egurrekin ez zuela zorionik izan. Oinbiko enbor bien alderdirik gogorrenak egokitu bai'zitzaizkion. Norbere edo erakusleen errurik nabaitu ba'gendu onetantxe zetzakean: Lanak laburtzeko griñak eragiñik epai txit ertsiak tajutu zituen, eta bere lenengo oinbiko gaiztoan, adibidez, azkenean aizkoraren aoa sartu eziñik gelditzean, indarka batean eten bearrean aurkitu zan, denbora ta kemen baliotsuak antxe utziaz. Orrez gaiñera, azken bi enborretara leikidea baiño zerbait nekatuago eldu zan. Au ez da arritzekoa, dakigunez «AGIETA»k gertuera luze ta sakonagoa egin bai'zuen.

Nolanai ere, «URRETA»ri bere aldetik egurrik zaillenak joku ontako ekartzeak ez zion bat ere mesederik egin:

«AGIETA»			«URRETA»			TRABEZAK
Enborrak	Denborak		Enborrak	Denborak		
1'na 54	1'58"	1'58"	1'na 54	1'50"	1'50"	
2 54	2'12"	4'10"	2 54	2'	3'50"	
3 54	2'33"	6'43"	3 72	10'10"	14'	100/80 «Agieta»
4 72	8'25"	15'08"	4 54	2'40"	16'40"	
5 54	2'32"	17'40"	5 54	2'25"	19'05"	100/100 «Urreta»
6 54	4'05"	21"45'	6 54	3'05"	22'10"	
7 54	2,58"	24'43"	7 72	10'05"	30'15"	100/20 «Urreta»
8 72	10'05"	34'48"	8 54	3'	33'15"	
9 54	2'26"	37'14"	9 54	3'35"	36'50"	100/60 «Agieta»
10 54	2'32"	39'46"	10 54	2'50"	39'40"	100/20 «Agieta»
11 54	2'30"	42'16"	11 54	4'40"	44'20"	
12 54	3'34"	45'50"	12 54	3'55"	48'15"	

Bere kondairan zear, euskal jokokerarik nagusien onek igaro izan dituen makalaldi guzietatik auzoarteko mutil gaztekiko leiatasun jatorretan sustraituriko neurketa piñ eta benetakoren batek oraindaiñokoan zuzpertu izan ba'du, Azpeiti'ko loiolatar eta izarraizpetar leiatsu auen arteko dema gogor eta ikusgarriak eragingo dio bein eta berriz ere ain gurea dan, AIZKORA-JOKU'ari. Erriaren zaletasunarenak ez du egin oraindik, azillaren 12'an Azpeiti'ko zezen-plazan naiko agerian gelditu zanez. Denborak eta bizikerak aldatuz dijoazen arren, izakeraz geu izanez jarraitzen dugula ta erri-oitura jatorrei eusten diegula egiztatzea, berriz, txit pozgarri da. Ez al derizkiozue?

JOLU'K



MATXITXAKO

XI

Itxas-Lapurrai zigorkada gogorra

TEXEIRA jaunak idatzitako Edestian, argi azalduten dausku: «...untziarengana doaz eta menperatutea dabe...» *Benetan itzalgarria izan bear eben itxas-gudaketa negargarriok: itxas-ganean untziak kilin-kalanka, eskuetan izkillu zorrotzak, aiztoak, aizkorak, burduntziak, ezpatak, makillak, arriak eta kalte-egiteko tramankulu dan-danak; zaurituak, baster guztietan, alaruak, ai-otsak!; untziak odolez gorrituak, itxas-urak odolduak; illak batetik eta besteagandik; itxas-ganean ainbat gorpu, itxas-sakonetan beste asko, an eta emen il-zorian ainbat, arago agoliñean; laguntza eske eta iñork ez erantzun!; zenbat negar, zenbat naigabe itxas-lapur ankerrak gure erri eta itxasoetara ekarri eben, eta zenbat urtetan eta gizaldietan bizitza bildurgarri, ikarakor eta samiñetan bizi izan zirean.*

Baiña iñork ez diñosku itxas-lapurrok, itxasoetan menperatuta erriratuten ebezanean, zetariko zigorkadakaz nekalduten ebezan, bakar-bakarrik aitaturiko ETXEITA, mundakar jaun gorengotarikoak, bere olerki-bidez idazten dausku:

«Arin, bai arin, iltzale orrek
Eroan urkatutera,
Bana-banaka urkatu ziran,
Orra euren amaya».

Esateko beste izpar edo «albistarik» ez dakigu, baiña nire «gaztetxotzaroan», errietan, ondiñokarren, ez ziran ezagututen antzoki edo «teatroak», ez idazpil edo «ziñeak», baiña bai, atsegiñez, gure Gizon eta Andre zarren jakingarrizko esakunak gogoz entzuten genduzan, eta onetariko esakun bat, idaz-lantxo oneri yaokana, nik entzuna da: «...eta Adubiye'ko kaltzada zarretik Erreiña-Zubi'ra doan bidean, goizaldeko orduetan, sarri-sarri alaru, negar-samin eta kate-narrazka otsak entzuten zirean, eta auzoetako leyo dan-danak, zarata orreik entzunik, estu eta gogorkiro itxiten ebezan, ikarearen-ikareagaz iñor ez zan ausartuten ezetariko ikusterik egiten, «begiak itxi eta belarriak gor», zelako jazokunak zirean iñork ezegiezan.

Orretariko esakun, ipuin-antzeko, eta gertaerak entzuten genduzan, eta oraintsu ere, bein baiño sarriagotan, entzuna da: «...ZARRAGOITI menditxoko berezian, Sartaldeko aldatzatik igon eta goi-aldean, burdiñustai edo «argollak» aurkituten dira, baiña ez dakigu zetarako izango ete ziran».

Eta alaru, negar-samin eta kate narrazka-otsak eta burdiñustai edo «argolla» ezaugarriok, dan-danok datoz arira, adierazoten dauskula itxas-lapur eta «untzizkillu» edo «Corsarioak», bein menperatuta errira ekartekoan, emoten edo ezarriten yakozan zigorrak.

MATXINTZALARIAK, euren itxasgudaketa amurru biziagaz, itxas-lapur eta «untzizkillu» edo «Corsarioak», guztiz ezereztuta eta aulduta menperatuten ebazanean, oratuak eta lotuak zirean, eta untzietan sartu eta Bermeo'ko AYENETARA edo Kaira ekarten ebezan, eta ETXEITA jaun argiak bere jakingarrizko JOSECHON'n, diñosku:

«Eroan eben Bermeo'raño
Itxasaldeko ongillak
Emon eyoen nekaltasuna
Auzien erabagillak».

Eta «Erabagilleak» edo «Juezak» emon bearko ebazan epayak, sarritan gogorrak izango zirean; zelako kaltea alakoxa zigorra!, eta nekaldi onek zetarikoak izango ete zirean, gertakun oneik azalduten dausku:

—Adubiyeko kaltzada zarretik Erreiña-Zubi'ra doan bidean, alaruak negar-samiñak, kate narrazka-otsak asmaten zirean eta Erreña-Zubi'tik laster, errekatxo bat igazitakoan, ZARRAGOITI menditxo goialdeko berezian burdiñustai edo «argollak» billatuten dira, eta ementxe, itxas-lapur eta «untzizkillu» edo «Corsario» menperatuak sendokiro lotuak izaten zirean, eta gau-egun, egarri gosez, ur apurtxo bat eta ogi zatitxo bategaz, udan sargori eta neguan otzagaz, arek-eta euren azken-arnasa eriotzagaz bat egiñarte zigortuten zirean.

Barriro, ETXEITA jaun agurgarriak, bere olerkietan zintzo diñosku:

«Txarto egiñak,
Ekarten ditu
Nekaltasunak
Munduan,
Itxas-lapurrok
Nastako dira
Arrantzalien
Amuan».

(J. l., jarraituko da)

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

TXEKAR KATOLIKU IZPARRAK

Laterri onetan, komunistak agin-pideagaz yabetu ziran ezkerotik, katolikuak Kristo'ren antzera, lapur biren erdian kurutzalduta bizi dira. Egia da, laterrilege nagusian bakotxak berak gura daben ziñeskerea ta erlejiño azkatasuna dabela esaten dala, baiña ori guzurra dala, egiteak agertzen dabe; arnasa artzen ostaz-ostaz itxiten dautsee, guztiz ito ezin dabenean. Ori yazo da Txekoslobakia'n.

Oin urte batzuk dirala, «Praga'ko udabarria» deritxon aldian, arnasa apur bat artu al izan eben, baiña errusitarrak indarrez zapaldu ebenean, lenera yo eben izpar oneitan ikusiko dogunez:

Gotzaiñak

Igaro dan Bagillean ordu batzuk barruan gotzain bi il ziran, bata 70 urtedun, Boemia'n, eta bestea 82 urte zituala, Eslobakia'n, eta olan 12 gotzain izan ziranetatik 2 bakarrik gelditzen dira, Txekoslobakia'n dagozan amar milloi katolikuntzat. Beste bateri, Mons. Karel'eri, bere zeregiñak betetea galerazo egiten dautsoe.

Agintariak, gauzak zuzentzeko asmoz-edo, Erroma'gaz alkar-izketa batzuk izan ebezan, baiña ezer egin barik gelditu dira. Ori dala-ta, gotzain barririk egitea ez da erreza. Alan eta guztiz be, yasarpena gora-bera, katolikuak ez dabe atzera egiten. Agintariak eurak, artega aurkitzen dira, 1968-1969'gnetako bateoak, ezkontzak eta obiratze katolikuak ugaritu diralako.

Kristiñau-Irakatsiak

Ikastoletan umeai, gurasoen eskariz, erlijiñoa irakasten dautse, baiña begitan artuak izaten dira. 1966'gnean, txekoen artean % 20'k ikasten eben, oin barriz, % 34'k; Eslobakia'n barriz, % 80'k.

Abade-Ikastetxeak

Agintariak alegin guztiak egiten diardue abade barriak urrituteko. Gaur abade-ikastetxe bi bakarrik dagoz zabalik: Litomorize, Praga ondoan, txekotarrentzat, eta Bratislaba'n, eslobakeraz itz-egiten dabenentzat. Bitzuok begitan artu eta oso aztertuak izaten dira «agintarien eleiz-arazoetako idazkaritzan» aldetik. Bratislaba'n, azkeneko urtean 80 ikasletik 35 bakarrik artzen itxi dautsee, ta bestean, 60'tik 35 bakarrik.

Katoliku-aldizkariak

Agintariak, euren eskuetan eukiteko alegiñak-alegin egiten ditue, ta 1971'gnetik asita Eslobakia'n erbesteko katoliku idaztirik sartzea debekatuta dago, abade-ikasketak egiteko bearrekoak izan ezik. Irakasleak be ondo zaintzen ditue.

Eslobakia'ko lekaimeak pozik egozan «Praga'ko udabarrian», gogorkeria apur bat ibitu zalako, Erri-parrokietan etxe bat artuta lan egiteko. Baiña oin barriro euren lekaimetxeetara biurtzeko agindu dautsee. Amalau eguneko epea emoten dautsee, euren gurariz egiten dabela esateko. Etxeok, iñork artzen ez ba'dauz, laterriak bereganduten ditu.

Gazteen artean zabalkunde izugarria egiten dabe eurekanatuteko. Auteskunde aldietan batez be, alegin guztia, izparringiz, irratiz eta urrutikuskiñez erriari buruan sartzeko Eleizea eurakaz dagoala. Orretarako, agintari ta eleiz-buru diranak alkar-izketan dagozala argazkiak zabalduteko, bake atxakiagaz, euren lagun diran abadeak bitarteko artzen dabez.

Indarkeri, guzur eta maltzurkeri guztiok gora-bera, katolikuak geroago ta zintzoago yokatu ta eleizkizunetara ugariago yoaten dira. Oneik esaten dabe: «azkenengo itza Yaungoikoak esango dau».

GAMA

Zer Jazo da Vietnam'en

Ipar Ameriketako auteskunde egun aurreko asteetan, mundu guztia poztu ginduzan barria zabaldu zan: Vietnam'go guda amaitzen zala, ainbat urtetako odol ixurtze ta ondatze ondoren, bakea izango ebela vietnamdar errukarriak.

Baiña, beriala, Nixon'en jokabidea etorkigun burura. Orain ain errez, gabetik goizera eratu dan bakea zelan ez dau egin lenago? Orain Kissinger'ek iru-lau eguneko jardunakaz konpondu eikean gudak zelan orain arte iraun dau? Ala auteskundeak irabazi al izateko edozelako bakea egiteko gertu al egoan bera? Urruneko guda bere bizkarretik jaurti nai daben erriaren gogoa irabazi naian edozelako amaia emoteko gertu al egoan?

Une batetik bestera bakea egingo zala irudian; bear bada iru-lau ordu barru izenpetuko zala be esan eben barri emoleak aldi baten. Ipar Vietnam gertu egoan orretarako. Gertu baiño gertuago be bai; amorratzen. Beretzat baldintza oneko bakea izan kontixu.

Baiña Kissinger'ek bear ziran guztiakaz kontau barik eratuteko bakea zan irudianez, zer ikusi asko eukan Ego Vietnam'egaz kontau barik, ta onek ezetz biribilla emon eban bere lendakari Van Thieu'ren aoz. Iñok aintzat artzen ez eban agintari makalak zerbait ba-dala erakutsi dau.

Jazo dana ikusirik beste itaun au neure buruari egiten asi naz: Ipar Amerika'k eta Ipar Vietnam'ek eratu daben eta izenpetzeko gertu egoazala irudian bakea benetan nai izan ete dau Nixon'ek? Nixon jaunak bakea nai dabena ez dago ezpairik. Vietnamdarrak kenduta munduko beste iñok baiño naiago dabela esango neuke. Errezoi askogaitik, ta bat, ori lortuta bere errian andi-andi geldituko litzakelako. Ta bake billa iñoizkorik sutsuen ibilliko zan auteskunde aurrean. Baiña Ipar Vietnam'egaz lortu daben bakea, naiz ta itxurak bestera egin, ez ebala gogoko dirudi. Gogoko izan balitxako Thieu'k burua makurtzea lortuko eban.

Lentxuago ia eskuan zan txoriak iges egin dabela dirudi. Geienez be bi edo iru egun barru izenpetuko zan bakea urrutiratu egin da. Orain gabonetarako-edo lortuko dala Vietnam'go bakea irakurri dogu. Zer gertau da? Ez dakigu. Egunen baten biar bada jakingo doguz orain eztabaidatu diran kontuak.

Andoni deuna baiño mirari egilleago irudian Kissinger'ek ez dau miraririk egin. Ba, miraririk mirariena zan ainbat urtean ezer konpondu ezin dan kontuan iru-lau eguneko jardunakaz bi alderdientzat okerrik ez ekarren bakea lortutea.

Orain Vietnam'go zoritxarrak aurrera jarraituko dau, noiz arte izango dan itxura barik. Laster amaituko al da!

KAMIÑAZPI

SARA

Iru bider izana naiz Sara'ko errixka maitagarrian. Beiñola, on Joxe Migel Barandiaran an zegoela, berari ikuste bat egitera. Oker ez ba'nago, 1950 garren urtea izango zen. Geroztik egindu eurirk asko.

Urte gutxi direla, bidenabar pasatua naiz. Baiñan, azken aldi ontan, patxaragoko ikustaldia egin nion ain atsegin zaidan errixka oni. Jakinmiña duenak, ez du beste erremediorik, zoro-zoro, kalez kale, ibilli egin bear, begiak alde guztietara zuzenduaz, agian luma eta papertxoa eskuan dituela.

Ni ere alatsu azken aldian Sara deritzan mendiko errixkan. Auñamendiz beste aldetik, eper apia dirudi, mendi urdin artean, Etxalar eta Zugaramurdi, parez pare, alde ontatik dituelarik.

Bein batean (ez dut orain gogoan zertaz ari nintzelarik) Euskal Erriko Atenas Txikia deitu nion. Izan ere euskal iskribatzailleetan Sara'ko lurra emankorra izan da. Sara izena aipatzeak berak gogora dakarkit leenik J. B. Elissanburu, olerkari bikaiña. Nere aspaldiko adiskide den Andoni Labayen'i zer edo zer zor diot ezaugera onetaz. Izan ote da gero gure artean beste iñor Elissanburu'k bezela abestu duenik? Ez dut uste:

«Urrundik ikhusten dut, ikhusten mendia,
Beraren gibelean, baitut nik herria;
Jadanik dut aditzen, zorion handia!
Eskila maitearen hasperen eztia!)

Sara'koa dugu ere Joannes Etcheberri, mirikua eta, itz lauz, idazle jatorra, Axular'en jarraille zintzoa, ala predikuz nola obraz.

Bisita laster bat bederen merezi du Sara'ko Eliza nagusiak. Euskal illarri biribillak inguruan. Goian, eskil-dorrean, erlojuaren ondoan, onoko itz auek: «Oren guziek dute gizona kolpartzen, azkenekoak du hobirat egortzen).

Ba dirudi itzulpena dela Urrugne'ko ezkil-dorrean dagoen latiñazko esaera onena: «Omnes vulnerant, ultima necat).

Larunbata denez, Eliza barnean, Erretorea gauzak prestatzen. Nai dut otoitz bat ixuri Urdazubi'ko seme eta Eliza ontako erretor izan zen P. Axular'en illobian.

Aldare nagusiaren oin-oiñetan, eskuin aldetik, oroitzapen eta laudoriozko itz auek irakurtzen ditut, marmol xurian ezarriak:

«Euskaldun iskribatzalletatik
iztun ederrenari, Ni, Luis Luziano
Bonaparte, Euskerazaleak, ipiñi nion.
Ez dago atsedenik,
ta odei gabe egunik,
zeruetan baizik». 1865

Ez zait iruditzen L. L. Bonaparte'k era ortan, ber beran, idatzi zuenik. Nere alboan dagoen Erretor jauna ere iritxi berdiñekoa da.

Arrizko gurutzea. Beso falta. Erreboluzioneko garaiean, beso motx geratu zen nonbait, diotenez. Etxe lasaiak ditu Sara'k. Bi ixuriko teillatuak aunitz. Leio musker eta gorriak. Zurgiñek izan dute ementxe, iragan denboran, izan dutenez, egitekorik asko. Etxe barna edo kanpotik, ba-du egur landuak alako berotasun eta aintzintasunaren usain berezia eta goxoa. Erriko Etxeari so-egitean, ene begiek zerbait aurkitzen dute:

Antonio Abbadieri,
Euskal Herriak
Orhoitzapena.
Historia bizitzaren maixtra da.

Sara gibelaturik, Donibane Lohizun'runtz nijoa, gogoetatsu. Bein, ama-kulturaren txingarra barnera eroriaz gero, ba-da urbil ezinegona. Bidean ninjoalarik, paketsu, isil-unean nurgildurik, berezko eta betiko galdera sortzen zait ene sakoneko sakonean. Zergaitik maite ote ditut nik ainbeste Sara'ko Erretor izan zen Axular? Zergaitik ainbat Etcheberri? Zer dela ta, Elissanburu? Gaur, Axular eta J. Etcheberri modan dagoztela, ezin genezake uka. Biek arrera ona, ezin obegoa, dute gure baitan.

Batzuek, Lekuona jaunari jarraituaz (ikus onen Aitzin-solasa, Itxaropena 1954) Axular'en izkuntza (Gero'z ari naiz) joria, aberatsa, oparoa, bereiztua, zeatza, aurkituko dute. Beraz ez da arritzekoa Axular aintzindari autatzea. Nik ere bai.

Beste batzuek, gure izkuntzaren zaartasuna eta jatortasuna, biek elkarri esku emanik, diote dela Gero'ren baliorik miresgarriena. Ortan ere adiskide nauzue.

Ori guztia egia izanik, beste zerbait maiteago dut oraiño, bai Axular'gan bai Etcheberri'gan. Zer ote gero? Bai Etcheberri, bai Axular, euskaldun bezain europear ditugu. Gure euskal-kultura Europa'ko giza-jakintzan edo humanismoan bein edo bein txertatu ba'zen, ebakintza eta txertu ori Sara'n egin zen.

Elissanburu, aldiz, euskal erro edo sustraien lekuko zaigu.

JOXE LASA

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK

OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK

Martin Aldazabal TENDERIA, 3

CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

ERRIETAKO BARRIAK

Arratia

Asteroko ontan, 61'gn alean, Dima'ko Oba auzotegiari ta bertan izan zan eleiztarren arteko asarre ta zatikuntzari ikutuz azaldu nintzakizuen, baiña «zamakolatar baten» iturri garbiko ur gardena edan al izan dot arrezkeroz, eta parka eskaturik guztioi, autortu bearra dot, neu bere nastu egin ninduela oker esateakaz. Eta, atzezale (hachezale esan nai izan dot) morokilleroen aldezko biurtuz noala iñongo iñork uste baiño len, eta illunari argi egiñaz, egindako okerra zuzendu nai dot.

Eleiz-ateko urontzia ustutea ta Sanantoliñetako zozketa galerazo naia, begoz esan bezela, eta goazen zuzenean eleizbarruko matazara.

Ikastoletan, Euskal-jaietan eta Erriaren biztugarri izaten diran jaietan bezela, Oba'ko eleizazaleen artean bere, satorrak musturra sarturik eukan eta azpi-lanean iñarduan. Piztitxu narru leundunak, «hache»z beterik ziran ala-olako «eleizabesti»ak maltzurki irakatsiz, bereak eta bost azpilan eginda eukazan auzotegi eleizkoia oartu zan baiño len-eta. Eguna etorri zanean... betiko betikoen leloa: «au, bai; ori, ez. Gozen emendik, ez gatoz bat. Onetaroko deretxotik ez dago, abar eta abar».

Eta abar azkoz saltsa ta nasketea egin ondoren, eta auzokideak bide ezbardiñetara emonak ipiñi, buztena eperdipean eta garaitza bizkarrean arturik, bildots barrien billa beste toki batera.

Kontuz ba, gazteok! Emon gatzezko daunbada barriro or izaten ba'dok.

* * *

Arkotxa, Euba'ko barriemoilleak ez ete ekian?... Auzuneko sukalde baten, txipli-txapla-punka iru arroa gaztaiña erre ta jan ondoren, gizonezkoak bikarbonatoaren bearrean izan ziran; eta millaka pezetako txakurra barriz, andrazkoen aize-purrutadaz ito baiñian igeska.

LANDAJUELA'TAR A.

Mallabia

Orain berrogeiren bat urte asi nintzan «EKIN» izparringian erri ontako barriak idazten. Erri euskalduna benetan, baiña orduko urteetan be, euskeraz idazteari ta irakurteari emonak ez ziran. Baiña apurka-apurka, ainbat arpidedun egin ziran eta igandeetan, mezen amaieretan, ainbat «EKIN saldu be.

Orain dirala egun batzuk, Mallabiabarrena'tar Ander il zan (G. B.) Euskaldun zintzao, ta berari azken agurra egiten Mallabia'n izan nintzan. Erria ta inguruetako bidezabal guztiak berebillez bete ziran; Eibar, Ermu, Berriz eta erritar danak aurkitzen ziran bere aldez egin izan zan eleizkizunean. Bai eleizan ta bai kanpoan, ez zan entzuten gure euskerea baiño beste izkuntzarik.

Poztutekoa, benetan, oraindiño esan geinke ba-dirala Bizkaia'n be erriren batzuk, geurea baiño besterik entzuten ez dana. Baiña, tamalgarria benetan auxe: gitxi batzuk baiño ez dira asteroko au ezaututen dabenak. Errua norena? Nire ustez, gurea. Arpidetuak gitxi izan eta eurak ez ba'dabe zabalkunderik egiten, asko ta asko, pozarren irakurriko leukeenak, ezjakiñean.

Alan izanik, ba, AGUR zabaldu bearra dogu, eta ziur nago irakurleak eta arpidedunak egingo dirala.

ANGOITIA'TAR BIKTOR

Igorre

Erriko eleiz aldean, Urrillaren 27'gnean, arratsaldeko 7 ta erdietan, odola emotea izan da. Aurrekoetan berrogeiren bat izan gara etorri garenak, ez dago txarto, ezta oso ondo be. Jente geiago etorri daiten, bakoitzak beste batzuri esan bear dautsegu. Zabalkunde geiago egin bear dogu.

Kontuan izan, egunen baten odol ori geuk bearko dogula olan jazoten ba'da, edo geure maiteren batek, baiña ori izan ez da be, gizona gizonaren lagun bear dau izan. Odol-emotzailleen taldeko buruak Etxebarri'tar Yoseba Mirena ta Zuñiga'tar Felizidad dira.

Gazteak eta zarrak, Kristo'k be geugatik bere odola emon ba'eban, gu zerura eroateko, legezkoa da, guk, bearrizanean dagoan anai bateri be emotea; an goien kontuan eukiko dauskue...

Au da maitasuna! Eunera arte aurrera!

IRRINTZI

Berriz

BARRIRO BE

Adiskide: ez zaitut ezagutzen, baiña, dana dala, asko poztu izan naz zure barri polita irakurriaz, eta ikusten zaitut Murgoitio'ko baso-elizeaz arduratzen zareana. Aurrera, ba, orrela. Bai, adiskide, barrua guztiz amaituta dagoala esan daiteke falta dira, bai, gauza batzuk, baiña apurka-apurka amaituta geldituko da. Kanpokaldea, barriz, oraindiño... Guztiz amaitzeko, beste bero-aldi bat bear dala uste dot. Penagarria izango litzake benetan, asi ta amaitu bagarik iztea; eta ori ez da egin bear, batez be zuek, murgoitiarrok. Asko alegindu zaree, baiña jarraitu, ez egon besteak egiteko begira. Jo ta ke geien ikusten doguna, bere planua buru-barruan dituala, Garro'tar Pedro da; beronek egin dauz gauzarik ederrenak, baita pozgarrie nak be, bere eritziz; era berean, Zelaieta'tar Jose'k be lan ederrak egin dauz zulean, altarea arrizko jarleku bana alde batean eta lorategi txiki bat bestean; sukalde eder bat be ba-diardue egiten, bildotsak naiz osterantzeko okelak erreteko. Siñistu be ezin daiteke ikusi ezik. Lagundu nai dagianak, datorrela zapatu ta domeketan, an izago gara-ta.

BESTE BARRI BATZUK

Guzur edo egi, gure erritarrak oraintsu sekulakoak egin dabezala entzun dot. Ondo gustora egin dot barre. Egun batzuk dirala, gaztaiñabatzera joan ei'ziran Gipuzkoa-aldera, San Juan'en jateko. Baiña... ba-dakizue zer jazo yaken? Ez dakizue! Entzun, ba: gaztaiña asko ekarri ebezan, baiña kotxea be jentez bete-beterik. Onetan, gelditu yake kotxea Maltzaga'n, ez aurrera ez atzera, eta an asten dira zerbait egiten: tornillo guztiai ikutuka, bultzakada itzelak emoten, eta abar; dana alperrik. Alako baten, Eibar'ko aguazillak agertu ei'ziran; areik be ikutuka ta bultzakada baten izerdia dariela; baiña alperrik. Gogait egin ebenean, «Katillu»k artu eta ekarri ebazan, gizon, kotxe ta gaztaiña. Gaztaiña-jana guztiz ona izango da, ori bai, orrenbeste arduratu ta izerditu ezkero. Geuri, berriztarroi jazo bear ori be!

Entzun dodanez, Matiena'ko Juan Pedro abadea operau egin ei'dabe. Ia, ba, Juan Pedro, laster guztiz osatuta ikusten zaitugun, zure lan eder orretan orain arte lez zintzo jokatu aal dagizun.

KARMELE

Ondarroa

BILBO'KO GOTZAÑA ONDARROAN

Gure Bilbo'ko Gotzañak, artzain dan ezkero, bere ardien artean egon nai izaten dau al-daben guztietan, beintzat. Orretarako, oituraz, astean bein-edo Bizkaiko parroki betera joaten da, bertako abade ta kristauerriagaz bizi ta artu-emonak eukitera.

Olan, ba, oitura oni jarraituz, Azaroaren 10'an Ondarroara etorri zan, ondarrutarrakin egun bat pasatera. Goizeko amarrak aldean eldu zan, bape ofizialtasun usaiñik emon barik. Erriko abadeak zaiñ eukazan eta eurak lagunduta, Eleizearen ardurapean dagozan etxe ta lanak ikusten asi zan.

Lenengo monjen kolejiora joan zan. Kolejio au «Kurutzearen alabak» (Hijas de la Cruz) deritxoen monjak daroe. Amabi monja dira guztiz eta 361 neska eziten dituez euren eskoletan. Zeresanik be ez dago lan nekeza dana, baña ederra gure erriaren onerako.

Gero Eleiz-ikastolan sartu zan eta asko poztu zan 250 ume egozala jakitean. Naibeste «gozoki» zabaldu zituan eta umeak be pozpozik geratu ziran.

Ikastolatik «Escuela de Pesca»ra ta parrokiko eskoletara. «Arrantza ikastetxe» au goitik beraño ikusi ondoren, gure Obispoa guztiz lilluratuta geratu zan, ez bakarrik etxeagaz baita, batez be, etxe barruko aurrerapenakin be. Eleizearen arrantza ikastetxe onetan 70 bat gaztek ikasten dabe, biar edo etzi «arrantzako patroi», «Kostako patroi» edo «makinista izateko».

Parrokixako eskolak be ikastetxe onetan dagoz: emen guztiz 131 umek ikasten dabe E. G. B. (Educación General Básica) deritxon irakaskintzako malletan.

Emendik urten eta ber-bertan «Umeak gordeteko etxea» (Guardería infantil). Bizkaiko «Caja de Ahorros» diru-etxeak egiten daben gizarte-ekintza eder bat da. Amak lanean dagozan bitartean emen eukiten dituez euren umeak egun guztian: zaindu, jantzi, jaten emon, otoitz egiten irakatsi ta ezi. Emengo zuzendariak lau monja dira «Kurutzearen alaben» tartekoak. Guztiz 110 ume zaintzen dituez beste laguntzalle batzuen laguntasunagaz.

Gero, pasiadatxo bat egiñez, Kamiñazpi'ra, eleiza barria egingo dan lurraldea ikustera. Kamiñazpiko eleiza barri au guztiz «funzionala» izango da: gaur ez gagoz eleiza arroak jasoteko giroan eta, gañera, olako eleizak diru asko kostaten dira. Orregaitik beste era baten jokatuko dogu: lur ori etxeak egiteko zaldu, baña etxeen beko «lonjak» eleiza zabal eta eder bat egiteko izango litzakez eta eleiza gañeko piso bat-edo katekesis eta batzar tokiak egiteko. Olanik askoz be errezago izango litzakigu eleiza barri ori ordaintzea. Gure Obispo Jaunak be era onetara jokatzea nai dau. Baiña goazen aurrera.

Eguerdian, «abade etxean», Gotzañak erriko abade guztiekin bazkaldu eban eta pozik bazkaldu be abadeen arteko giro ona ikusirik. Arratsaldean, zeregiñik garrantzitsuena Eleiz-ikastola barria izango danaren «lenengo arria» ipintea izan zan. Poz-pozik artu eban gure Gotzañak asmo au, gaurko egunian Eleizearen zeregiñik arduratsuenetarikoa dalako.

Gero Hospitxalera: Emen be monjak dagoz 13 zaar eta geixo zaintzen: «Kurutzearen alabak» emen be, guztiz iru.

Hospitxaletik Antiguara, Amabirjiñari ikustalditxo bat egitera ta Ondarru'ko erriaren alde otoitz egitera. Azkenez, Ondarroa'ko Arrantzaleen Kofradixan sartu zan, bertako arduradunak eskatuta ta pozik ikusi zitun Kofradixa eder onetako bazter guztiak.

ALKAR-MEZA TA AGURRA

Eguna amaitzeko, gabean, beste erriko abadeekin batera ALKAR-MEZA EDER BAT emon eban erriko defuntu guztien alde. Eleizea plen-plen egoan eta jenteak parte artu, barriz, amorruaz. Berbaldia euskeraz eta erderaz egin eban; euskeraz, barriz, ederto ta goxo, Naparroako «z» ta guzti.

Jakiña dan lez, Eleizako batzorde batsuek agurtu eben Obispoa: Eleizako seglarren batzordekoak, Eleiz-ikastolakoak, eta «Kristau-alkar-laguntzakoak»

Obispo Jaunak oso pozik igaro eban egunа gure artean, baña berak esan ebanez, danetatik gauza birek, batez be, ikutu eutsoen biotza: Erriko abadeen arteko batasunak eta gabeko meziak, alako mezarik ez ei-eban iñun ikusi (ta ikusiko bez barriro Ondarrure etorri arte, diñot neuk).

Eta olantxenik amaitu eban Gotzai Jaunak eguna gure artean: Egun bete-betea benetan. Eta pozik joan zan barriro Bilbora, Ondarroari agur bero bat egiñez.

Agur, bai, Gotzai Jauna ta nai dozun arte: emen daukazuz zure erri ta etxea.

J. GARITAONANDIA

Olakueta

Lenengo AGUR'a arturik eta zabalduaz, Berriz'ko txatal bat irakurten asi naz. Egia esanda, ez nago guztiz «konforme» an ipinten dabenagaz. Parkatu egidazu Karmele, baiña ez nago guztiz zugaz txatal orretan. Nik ederto deritxot erri baten jazoerak onetariko asteroko baten argitaratzea, baiña uste dot eze, argi ta garbi esan bear dirala gauzak. Nik irakurri dodan zati orretan, zuk, Andoni Gotzain jaunaren gaiñean itz egiten dozu. Berriz'era etorri zala ta zapatu gabeko 8 t'erdietako mezetan jende asko egon zala, diñozu. Parkatu, baiña uste dot eze, Gotzain jauna ez dala oraindiño Berriz'era etorri. Egia da etorteko izan zala, baiña Madril'era joan bear bat euki eban eta ez zan etorri.

Nik, ederto ikusten dot nor edo nor erri bat eta bere gorabeeragaitik arduratzea, baiña uste dot eze, leenengo ta bein, eta len esan dodan lez, gauzak argi ta garbi, egia aurrean dabela esan bear dirala.

AREITZ

OARRA.—Joan zan Urrillaren 14'gnean, balitzake zu zeure ikastaroetan erritik urrin izatea, ta jakin ez Gotzain jaunak sartu-urtenik egin eban; ba-litzake baita, Berriz'era joatekotan izan eta zuk diñozun lez, azken orduan ezin izatea. Ori Karmele'k argitaratuko dausku. AGUR'etik agur.

SAN MIGUEL

Euskal idazti ta eresmintzak. Gaur, atzo ta beti-betiko euskal gaiak bakarrik eskeintzen dituan etxe bakarra.

Ta orain, margo-lan politdun iru eratako ormarako euskal egutegiak eskeintzen dautzuz:

15,—; 10,—; eta 8,— lauerleko bakoitza.

Baita Gabon-zorion txartelak ere, Christmas orretariko aukera egokia:

10,—; 8,— eta 5,— lauerlekoak.

GABON ETA URTEBARRI ON DANORI!

Eskatu: **SAN MIGUEL, Al. de Urquijo, 60, 5.º izq., BILBAO-11**

TOLOSA'KO MEZEA

Il onen emeretzian egin gendun Tolosa'n Joseba Sagartzazu gure lankide zanaren alde mezea. Meza orretan izan giñanok, bakotxak bere pentzakerea izango dau, baiña ba zan an zer edo zer ondo alkartzen ginduzana.

Igande baten mezatara joaten garanean, era askotako kristiñauak an alkartzen gara. Eta ez-bardintasun onek ba ditu bere akatzak. Egin dagigun alkar maitasuna biotz guztietan dagola, eta ez da gitxi esatea. Baiña ezbardintasunak berak, nai ta nai ez, pizka bat alkarrengandik urrintzen gaitu: zapalduak eta zapaltzailleak, iñorentzako lan egiten dabenak eta iñorenetik bizi diranak, izkuntzeari buruz pentzakera ain ez-bardiñekoak, erri-arazoetan ain jokabide ez-bardiña daukagunak... an alkartzen gara guztiok siñismena baiño beste bardintasunik barik.

Zer zan ba Tolosa'ko eleiza aretan alkartzen ginduzana? Lenengo ta bein, jakiña, siñismen bardiña ta Joseba'ren gomutapena, baiña baita arazo bardiñean sartuta egotea be. Guztiok sailla baten lanean. Joseba'ren gomutea be orra joian: bera gure lankide zan eta orain be gugaz talde bat osotzen dau.

Gero aztertu genduzan geure arazoak, eta ain ondo aztertu be. Gero geure artean lanerako gertatu giñan. Baiña indarra ta adorea, guretzat, kristiñau lez jokatu nai dogunetzat, Mai santutik etorren eta gure aztertzeak Erria ta siñismena aurrean zirala egin ziran. Izan be, Gure Erria ta siñismena alkarrengandik ain urrin ez dagoz, eta geroago ta urrago egotea zan gure gurari bizia.

Argi esan euskun ori bere berbaldian Gaztañaga adiskideak. Baiña AGUR'en alkartasun onen gomutapena iztea egoki dalakoan idazten dot lantxu au. Errizaletasuna ta siñismen argitsua alkartu gura doguz eta orretarako laguntzea Mai santuen aurkituko dogu.

GAMIZ

ARGIA TA INDARRA

Tolosa'tik

Eundik gora bildu giñan GOIZ-ARGI'k dei eginda Tolosa'ko Sakramentuen etxean, Azillaren 19'gnean. Gizaseme ta emakume. Gizon prestu agurgarri asko ikusi genduzan gazte pillo eder baten erdian, bai mezatan bai batzarrean baita bazkaritan be: Isaak Lopez Mendizabal, bere 93 urtekin; Damaso Intza Kaputxinoa, bere 86 urtekin; Garibel Manterola, bere 82 urtekin; Labayen, Zeleta, Basarri, Bordari, Etxaniz, Beiztegi, Arenaza ta abar, Aita Garate zuzendari gendula. Ederrak, mamintsuak Basarri jaunak mezatan, erri-otoitzean esandako bertsoak. Jesus Gaztañaga'ren itzaldia be samurra. Biotz-biotzean sartzekoak Sagartzazu'tar Joseba zanaren alaba gazteak, bere sendiaren izenean meza-bukaeran zuzendutako itzak.

Batzarra oso onurakorra. Askok egin eben itz. Danak euskeraren onari begira. GOIZ-ARGI'ren ardura izan dabenak argi ta garbi azaldu ebezan euren asmoak eta kezkak. Iru millaren bat arpidedun ei-ditu aldizkariak. Amabosterokoa egiteko naia ta asmoak. Gaiak zabaldu ta aldizkaria gaurkotuz kalera, erri osora begira jarri. Pentsakera ederrak agertu ta azaldu zituen ontan Latxaga, Azurtza, Errandorena, Lasa ta Orbegozo jaunak eta beste batzuk be, Baiña dana ixilduta, Orbegozo Aita Pasiotarraren naia ta asmoak gogoerazi ta indartu nai neukez.

Kementsu ta ausartsu agertu zan praille gazte au ikastolari buruz: «Zuen danon laguntza bear degu —iñoan bein eta barriro— baiña agudo, oraintxe berton, gerorako laga gabe, bestela ito bear gaituzte, ito bear gaituzte».

Egian dago Aita Orbegozo, ta egian an itz-egin zuten besteak gai oni buruz. Gure ikastoletan ez da erlijorik irakasten; batzuetan bere aurka irakatsi be bai. Len be ainbat aldiz agertu da asteroko ontan erlijio-etsaiak dagiezan alegiñak ateismoa ikastoletan sartzeko. Ondarroa ta Arrasate ikasbide, besterik aitatu barik. Baiña aurrera diardue. Zin egin dabela bide, lan kaltegarri au aurrera eroateko. Umeai erlijioa irakatsi ez, ta ez ori bakarrik, ateismoa irakatsi. Ako antxiñako paganismo aldietara eroan gura dabe gure Erria.

Seguru asko, traba aundia dagitse batzui barruan Jainkoak, euren gurariak eta asmoak bete al izateko. Arenaza jaunak bitoizik jarri ditu, narru-gorrian, bein baiño sarriago AGUR'en, siñesge barri onein asmoak eta gurariak. Eta lan au izenpetutzen dauan onek be, zeatz azaldu eban gai au igezko zenbaki baten.

Arenaza jaunak, bere azken lanean iñoanez, umeen ezikerea gurasoen eskubidea da, beraz, gurasoen naia egin bear da ikastoletan, ez marxismo-zaleena. Gurasoak bein eta sarri agertu izan dabe euren guraria, bai Eibar'en, Ondarroa'n eta Arrasate'n eta beste erri askotan, baiña eurek, marxismo-zaleak, ez entzun egin daroe. Len be esanda daukagu asteroko ontan: betoz eta ugari euskal ikastolak gure erria alfabetatutzeko euskera maillan. Zabaldu bitez ikastolak uri, erri ta auzoetan, baiña ez artu ikastolak bide lez gure umetxoai ateismoa irakasteko, gure umetxoak erlijio-girotik ateratzeko.

Ikastolai buruz sortu dan burruka ontan, guri ezarri nai dauskue errua, erlijioa irakastearren ikastolak itxi-bearra izan daitekela-ta. Au tentelkeria! Ta, bestera zergaitik ez? Gurasorik geien-geienak erlijioa irakastea nai dabe. Zer jazo leiteke ikastoletan erlijioa irakatsi bearrean marxismoa irakasten ba'da? Gurasoak euren umeak ikastola orretara ez bialtzea, ziur asko. Gauza guztien ganetik Errieran ona billatu bear ei da. Ta, besteok zeren billa gabiltz ba? Orren ustez eurek bakarrik egin dabe dana, aurrekoak ezer ez edo oso gitxi: Arana?, ameslari «madarikatu» bat ei da. Agirre?, apaiztxo bat. Gudan il ziranak? alperrik il ziran zoro batzuk. Ta neke guztien ganetik jator jokatu eban erria? Zertarako errazoiekin orrengana, zinpean saldu dabe gizonak daben onena: egiakin jokatzea. Gauza bat egin bear leukee, baiña agudo, lenbailen: Arpegia agertu ta ez, okerkerian dabillanak egiten dabena, guzurrakin Erria oinperatu.

Oneik olan, eta amaitzeko. Elizaren babesean dagozan ikastoletan ez dagiguzan zabaldu ateak maoismoari. Ernai ibilli beitez eleiz-arduradunak, apaiz jaunak, parrokoak, Elizaren babesean ez dagozanetan gurasoak jakin begie noren eskuetan izten dabezan euren umeak. Erriaren ona nai dogu guk be lenengo-lenengo, bere azkatasuna, baiña Jainko-zale ta euskaldun. Izkuntzearen aurrerapidea atxeki dala erlijioa baztertu? Euskerea —zelako euskerantoa!— aurrera eroateko erlijiorik irakatsi ez? Indar gabeko errazoiak. Arren eta arren, ez biurtu ikastolak AKELARRE.

Guk, Erria, bera dan lez, euskalduna ta erlijio katolikoduna nai dogu. Ta orretan aleginduko gara gure Erriarekin batera.

GOIRIA

«EUSKALDUNAK... eta Maite-Miña»

Zentzugabekeri asko entzun eta irakurri oi dugu euskaldunon maite griñaren inguru. Gai ontaz au gerala ta beste alako gerala ta abar. Nik al dakit zenbat iritzi oker ez diran aipatzen. Nere ustez, egia esatekotan ez nuke bayeztuko auzo-errialdetako gizon-emakumezkoen aldean jarriaz ez bestelakoak geranik.

Ez gaituzu ez aingeru ta ez santu, gizaki baizik, eta gorputzaren griña ta joera loiak gerekin daramazkigu baita ordea, ere, espiritu ta gogoaren arnasak piztutzen dizkigun asmo garbi ta goitarrak.

Sexu ar-emetasuna dala-ta elkarrenganako ekarpenaz jaioak gera naski. Eta ala bear du izan. Gizona, gizon eta emakumea emakume izateko sortuak bait dira. Orregatik osotasun ori gabeak, oi ezak lotsagarritzat arturik daude.

Baiñan egia da eraberean gure limurkeria ezi ta menperatu bear dugula egunero bizi-jardunak aspaldidanik erakutsi digun bezela. Bestenaz gizakumea galbidean sartzen da, azkenik amildegira eroriaz.

Zer dan zillegi ta zer ez, sexu jokabidean, barruan gizonak berez duan senak eta lege naturalak adierazten dio. Antziñako erlijio guziak errespeto ori sartu zuten gizonen adimen eta biotzean. Eta kristautasunak, batez ere Katoliko siñismenak Jainkoa'ren aginduak argi ta garbi ipiñi dizkigu begien aurrean. Euskaldunok, geienak beintzat siñismen ontan bataiatu ta sendotuak izan gera Jainkoa'ri eskerrak. Katolikotasunari asko zor diogu naiz orain batzuek ez ba' dute aitortu nai.

Gure oiturak eta izatea ontzen lagundu gaitu. Onak ez du esan nai utsegiterik ez dugunik, ez! Ez gaituzu doatsu beti, baiñan geran erorialdietan nola altxa ta bide zuzenera nola joan berriz Jainkoaren legeko amar aginduak ongienik erakusten digute. Eta pekatari izanagatik fededun jarraitzea ez da azaluts hipokrita izatea, argal eta aul gerala aitortzea baizik.

Gure gaitzak, apal izanez bakarrik, senda ditezke. Lenagoko euskal kristautasuna estuegia, «jansenista» zala, illuntasunez betea akarra egin digute. Nik, neuk, alderantzian, euskaldun fededuna gizaki alai, irritsu ta jostalaria, bizi-pozaz baliatzen zekiana izan dala esango nuke. Gaurko «existenzialistak» baiño areago. Eta au munduaren naigabeen artean Jainkoa'k ematen duan «baikortasunez beterik zegoalako. Eta bai sexu ar-emanetako irriki ta griñan ere.

Esandako gogoetak kontuan arturik goazen orain «EUSKALDUNAK» eta «Maite-Miña» gaia aztertzera.

* * *

«EUSKALDUNAK» Orixe'ren poema arrigarri ederrak ez duala barruan maitasunezko ipuin aundirik eta gaizki esaka dabiltza. Mikel eta Garazi'ren elkarrenganako maite-miña ez omen da ari mee bat besterik. Ori diotenak ez dira oartu nere ustez Poema osoan zer nolako lokarri sakon eta azkarra, zer korapillo estu ta kibisto leun baiñan iraunkorra eundua agertzen dan bi gazteen maitasunean.

Aski da lenengo kanta «*Pestaburu'tik*» asi ta azkeneraiño... «*Eztaiondo*» irakurtzea, ikusten joango geranez urrengo batean.

Idazle garratz eta gaitzitu batek diona, alegia: «Mikel eta Garazi'ren artean dagoan sendimendua gizatarra ez dala, aizezkoa baizik, esatea ez da aurreiritzi oker bat besterik...

Zer bada?... Elsa Scheellen'en nabarmenkariak al dira euskaldunok eredutzat artu bear ditugunak?... Eledergille aurrekoiak likiskeri gordiñegiak beretzat gorde itzala. Ez dut uste bere senideak giro ortan eziko dituanik. Sartre eta Russell'en iritzi makurren jarraitzaille dana errezago eroriko da ustelkerian. Au da, benetan, giza-biotza galdu ta paltzoten duana.

«EUSKALDUNAK» poeman lotzen dan Mikel eta Garazi'ren elkarrenganako amorioak bertsogintza aulduko ote zuan beldur omen *Orixe*... Bertsoen etsai zala esaten ere maiz entzun nion baiñan millaka ondu zituan; eta nola!... Gizon zanez griña guzietara makurtua zegon eta maite-miña menderatzen izan zuan aski kezka. Poema'ko bi maite-minduen sentimendu ta joerak altxa ta goratu zituan, ez bakarrik Lizardi eta beste adiskideek emandako aolkuak jarraiturik, Orixe'k berez erabaki zuelako. Aiurriz eta izatez gizon aparta zala ez dut ukatuko. Gizandi, «jenio» diraneri ori bera gertatzen zaie.

Nerekiko esango nuke Seksuari ez ziola gorrotorik izan, bai ordea beldur aundi bat. Ontan Kristo'ren ebanjelioa zuan gidari. Eta Axular'en ikasle ere bai. Onek «GERO» liburuan LX kapituluetatik, XIV aragikeriazko pekatutik begiratzeko egiñak ditu: «amorio desordenetatrik nola bear dan ilki; eta kaltetik erremedio billa ta garbi bizi...» Orduan, orain eta beti: «Libido lassari potest, satiari non potest». «Una al diteke eta neka... baiñan ez ase». Orain zenbaitek ain maisu aunditzat daukaten *Axular* ar zatela, orobat, zillegigo ta oituretan...

Euskaltasunez, ertilan eta poesiz, egiantzez eta irudimenez, *Euskaldunak* poeman erregin dan GARAZI xalo maratsa, askozaz atsegiñago zait ELSA SCHEELLEN urdanga doakabea baiño. Aize garbia maite bait dut eta ez... kiratsa.

ANTONIO M.ª LABAYEN

GURASOAK

Lurrean dagon giza-biziaren lenengo oiñarria senar-emazteak dira. Bi alkartasunean, batean, batak bestea maitatzen ta alkarri on egiten. Maitasunaren deia berezkoa danez, era onetan giza-bizitza osotu egiten da. Ezkontzaren kateia sendoa ta maitasun gogorrekoa da; ta ori dala-ta, ez zaitez auzitan sartu ezkonduekin, bestelan bien artean zer... Orixe da egizko ezkontzaren legea, biak bat egiñik, euren buruak zaintzea.

Senar-emazteak ba-dabitzaz bizitzari erantzuten euren jakituriz, indarrez ta nai izatez. Gizonen seme-alabak, eder ta maitagarri diranez, ba-doaz ezkontzen ta geiago ugarituez. Ume barriak datoz ta guztiak gurasoenak sortzearen eskubidez. Aitaren ta amaren lan ta maitasunez etorri dira. Ez koplaz, bizitzaren legez baiño. Gurasoen antza, bizia ta odola daroez. Ta euskaldunak euskal bizitza ta odola.

Ta umeak, berezko legez, euren gurasoengana doaz. Barruko legea da au, izatezkoa. Ausi eziña, berezkoa dalako. Umeak, berez, beste iñor euren nagusitzat ez dabe onartzen gurasoak baiño. Eurentzat egia gurasoak dira, maitasuna gurasoak dira, bizitza gurasoak ta beste jaberik ez dabe ezagutzen. Bizitaren indarrak diño au, ta errurik ez daben umeak bizi oneri erantzuten dautse.

Bizi lege orren ondorenak illezkorrak doguz. Umeak gurasoenak dira, umeak aita ta amari dei egiten dautse; gurasoei eskatu; gurasoak bereziki maitatu. Umeari au kentzea, lapurretea da; barruan berez daroan eskubide sainduena ostutea. Ta ori egitea, umea iltea da. Umea bera beretzat da azten dagonean, ta orduan, gurasoen laguntasuna ta zuzentasuna nai ditu beretzat.

Gurasoak alderdi bietatik dira umearen jabe bakar. Lurreko gauzerik bikaiñena egin dabe umea sortukeran. Izaki barri ori eurak egin dabenez, takataka, oiñez, buruz ta biotzez ibilli al izan arte, lagundu, zuzendu ta agindu egin bear dautse. Au da, euren ale ori osotu eginbearra dauke, gero, laster, gizartearen atal izanik, gizadiari on egin dagion.

Umeen aldetik be, seme-alabak gurasoengana doaz, berez, bizitzaren legez, ta antxe, aurkitzen dabe menpetasun zabalena ta gozoena. Ori dala-ta, nagusiak eurak be, ezbear orduetan, amari deika, sarri, asmetan doguz; gurasoenak izan gu ta ori ezin kendu.

Ume txikiak ba, gurasoen eskutik doaz ikastolara. Gurasoak ez dabe astirik, ta geienetan, ikasirik ere ez, seme-alabei irakatsi al izateko. Baiña ume orrek, beti dira aitaren ta amarenak. Ta onen bion borondatearen arabera argitu ta zuzenduak izan bear dabe. Irakaslearen eskuetan umeak ez ditue izten gurasoak, arek, berak nai dabena umeekin egin dagian, aita-amen gogora argitu ta ezi dagiezan baiño.

Lurrean dagozen eraketa guztiak, bai irakaste ta aginpideak, Jainkoak sortu eban sendi bideari laguntzeko dira. Gizonak, sarri, beste bide batzuk nai ditu bere gogoaren erara: adibideaz: oraindik lengo batean, Mondragon'en jazo zan bezela. Ainbat irakaslemek gurasoen gogoko ez ziran bideak artu nai zituen. Asmo orregaz konturaturik, gurasoak zuzen jakin eben, euren eskubideak zaintzen ta gauzak bear ziran lez erabagiten.

Gurasoak, beste toki batzuetan be, zuen eskubideen eran ez doaz umeen irakatsiak. Ikastola izen ta beste ederkeri batzuekaz, ondo atzipetuta zaukeez. Bizkai maitagarria, zure gizaldietako siñismena kendu nai dautsue gaurko mito barriekaz. Gurasoak esnatu, ta begira nortzuen ezkuetan jartzen dozuezan zuen umeak.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

AGUR

III URTEA
66 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - LOTAZILLA - 16

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

ERRIRIK ERRI

Gaurko giządian benetako arazoa da ERRIRIK ERRI dabiltzęn gizakiena. Gizaki batentzat, bere lurraldea itzita, beste lurralde batera joateak arazo gogorrak dakaz: bere barruan, bere inguruan, sendian, aberrian, laterrian...

Eta Euskalerriari begiratu ezkero, arazo oneik beste aberrietan eta laterrietan baiño be nabarmenago agiri dira. Arazo oneik aztertzeko iru eratako taldeak aztertu bear doguz: Emendik joanak, kanpotik ona etorriak eta berton dagozanak.

* * *

JOANAK

Euskalduna ibiltaria izan da kondaira guztian: Ameriketara, itxasora, erbestera lan egitera, nai ta nai ez erbesteratuak... Eta geienetan ondo artua izan da. Iñon ez da entzuten usukalduna gorroto dabenik, bai toki askotan maite dabela.

Joaten diran batzuk betiko joanak dira, eta an euren abi barria egiten dabe, bertakotu egiten dira. Oneik Euskalerriak betiko galdu ditun semeak dira. Odolez, baleiteke, euskaldunak izango dira, biotzez be bai, baiña gure erria ez dabe sostzen.

Beste batzuk aldi baterako joaten dira, eta gaur daukezen arazoak zuzentzen dabezenean barriro ona etorteko itxaropena dauke. Oneikaz artu-emonetan jarraitu bear dogu eta Erri-kontzientzia galdu ez dagien alegindu bear dogu. Ba dakigu, esaterako, AGUR erbestean dagozan batzuk artzen dabela. Bejoakie gure agurrik beroena eta ezetan lagundu al ba'dautsegu gertu gagoz.

* * *

ETORRIAK

Onein arazoa besteena baiño arantzatsuagoa da. Zenbat eta zenbat erbesteko etorri jakuzan geu baztertuta izteko eta erri-kontzientzia galazoteko!

Eta zer? Etorri-barri oneik euskaldunak ete doguz?

Emen be betiko etorriak eta aldi baterako etorriak berezitu bear. Aldirako etorriak ez dira problema, ez leuke izan bear beintzat. Euren alkarteak egin dagiezala: «Galiziarren etxea»... Baiña geuk eurai an izaten dautsegun itzaltasuna izan daiskuela eurak be emen guri, gure izkuntzeari, gure jakintzeari, gure oiturai... eta kito.

Eta betirako etorriak? Oneik neure ustez ez dira iñoz euskaldunak izango. Iñor ez da euskaldun egiten, euskaldun jaio egiten da. Eta au ez da endakeri bat, au begien aurrean daukagun jakingarri bat da.

Baiña eurak bertokotu egin bear dabe izkuntzea ta jakintzea ikasi, oiturak artu, gure Erriak ditun arazoetan sartu...

Eta bear diran baldintzak bete ezkero, orduan gure Errian sartu leitekez, gure Erria osotu legikee, eta, orrelan, Euskalerria era bitako erritarrak osotuko leukee: euskaldunak eta, erbestetik etorrita, bertokotuak.


Ba dogu or beste arazo bat be: Kanpotik etorriak, geu Erri txikia izanik, geiegi diran ezkero, zelan bertokotu? Batez be, geure gauzai indarra emoteko alde guztietatik ainbeste eragozpen doguzala? Ez ete gaitue, geure Erri-kontzientzia galduta, geu eurakanatu?

Gaur indarge gagoz eta etorri-barriok konturatu barik, benetako Erri-iltzailleak izan leitekez.

BERTOKOAK

Ementxe dago gure gaurko burrukearen zelai zabal bat: Erri-kontzientziari eutsi, Erri-kontzientzia zabaldu ta sakondu eta orretarako onak diran bide guztiai aurrerapidea emon. Zarrak itzi euskuen Erri bizi au, gure oiñordekoentzat biziago ta sendoago itziko al dogu.

AGUR



Gizonaren adizkiderik onena! Ala ere txakurra txakur eta oiñutsik, baiña batzuk besteak baiño adizkideago... gona alboko zuri panposa, albagin luzedun ertzain-alemana, txarlango lasterkari errusitarra, ugaletik tatarraz kalerik kale erabiltekoak, eguraldi ona danean... lanerako ostera, napar pointer ariña, erbitxakur zurra, atezain baldarra, artzain-ora, lanean diarduenean goralduak, baiña sarriegi ostikopetuak... orra baiña, ugarienak, begia zur makilladari iges egiteko, ortzak azkar janari apur bat aoratzeko, kalerik kale bakarrik, arratoi-txakur eta bere kideko izen aundi bako arloteak; ugarienak, bai, erri xeea bezelaxe.

Ta, adizkide onein artean, gizonen artean jazoten dan lez, iñoiz, txakur amorratuak, aginkada bategaz edozein edenduko leukeenak. Buru-makur, apal-apal agertzen dan orrek zenbat kalte inguruan, gizasemeak eta abereak ondatzen.

Ez diñoskue Gabon aretan txakurrik izan zan Aterpean, baiña an zan, zintzo ate aurrean, atadian, Ume Jainkoa txakur amorratuegandik zaintzen.

Baiña, txakurrak errurik ez izan arren, aotan darabilgu gizonen okerkeriak azaltzeko; ara bat; erbestean ezaguna: «Txakurrak, eurak; zintzurrekoak aldatuta...!

UBITZA

EUSKALTZAIN OSOAK GAUR

Izen-abizenak	*Noiz izendatuak*
Antonio Arrue	1954
José Miguel Barandiarán	1953
Louis Dassance	1953
P. Jean Diharce	1963
Guillaume Eppherre	1953
Eusebio Erquiaga	1953
Juan Gorostiaga	1963
Jean Haritschelhar	1963
Aingeru Irigaray	1941
Alfonso Irigoyen	1963
Federico Krutwig	1947
Antonio Ma, Labayen	1964
Pierre Lafitte	1953
Miguel Olasagarre	1920
René Lafon	1953
Pierre Larzabal	1963
Manuel Lecuona	1950
José M.ª Lojendio	1954
Luis Michelena	1953
Juan San Martín	1964
José M.ª Satrustegui	1963
Luis Villasante	1952
R. P. Policarpo Iraioz	1968
Antonio Zavala	1964

GUDA ONDORENGO LENENGO URTEETAN IZENDATUTAKO OSOKO TO LAGUNTZAILLE

Izen-abizenak	*Noiz izendatuak*
Eladio Esparza (Diario Navarra)	1941
Aingeru Irigaray	1941
Juan Irigoyen (Gaceta del Norte)	1941
Gregorio Maidagan	1941
Ignacio M.ª Echaide	1942
Federico Carlos Krutwig	1947
Alesandro Bausani	1948
Julio Caro Baroja	1948
Antonio Tovar	1948
José Vallejo	1948

ZERGAITIK EZ

Nere azken idaz-lanean, ez geuntsala Euskaltzaindiari jaramonik egingo esan nuen, eta aste onetakoan zertzelada geiagokin adierazoko nuela. Ara, «Euskaltzaindiak lengo lepotik burua, edo obeto esateko, guda osteko lepotik», idatzi nuen... Baiña zer jazo zan guda ostean Euskaltzaindian? Ba, beste alkarte ta sendi-barru geienetan jazo zana: Burrukatik, batzuk irabazle edo irabazleen aldekoak, besteak, galdu ebenen aldeko. Azken onein artekoak, batzuk espetxera, beste batzuk erbestera ta geienak ixiltasunera!

Irabazle aldekoen edo begi onez ikusitakoen artean gure Azkue aundia egoan. Ez gendun, aldi aretan, ezagutzeko erarik ez adiñik izan, baiña, gure ustez, naiko buru auste ta lan izango zituan On Resurrección'ek olako larri aldian Euskaltzaindia berbiztutzeko. Baiña nortzuk osotu leikeen orduan olako alkarte bat? Jakiña, naizta euskera arloan entzute aundikoak izan ez, irabazleen aldekoak izan bear (begira alboko zerrendara).

Aldi aretan eskaultzain osoak izan zirenetik iru bizi dira gaur: Aita Damaso Intza, guda aurreko bakarra. Guda ostean (1950'gna baiño lenago) izendatutakoen artean, beste bi: Aingeru Irigarai osagillea, ta Federico Carlos Krutwig (1941 eta 1947'gnetan izentatuak). Azken au, aldi aretan, Neguri'ko aberatsen artean ondo ikusia zan. Jatorriz erbestekoa, ta agiriko iritzietan beintzat, irabazleen aldekoa. Ez da ba arritzeko, izkuntzak ikasten saiatzen zan gizona, euskeraren bakantasunagaz arduratzen zana, besterik barik euskaltzain osokoa izendatzea. Beste meriturik?

Begira Juan San Martin'ek bere «escritores euskericos» erderazko liburuan diñoana: «Krutwig Federico Carlos. Nació en Guecho (Vizcaya) el 15 de febrero de 1921. Ha empleado los seudónimos «Hobeko de Garralda», «L. Fernández», «G. de Zúñiga» y «Fernando Sarrailh de Ihartza». (Euskerazkoetan ez du «h» paltarik). Profesor Mercantil. Hizo estudios *para* Derecho y Economía. Lenguas orientales en la Sorbona y en Bonn. Ha mostrado inclinación a la Filosofía, Física teórica y Lingüística. Miembro de número de la Academia de la Lengua Vasca. Ha colaborado en «Gernika», «Euzko-gogoa», «Egan», «Tierra Vasca», «Branka», etc. Es autor, en castellano, de *Vasconia*, 1962; y *La cuestión vasca*, 1966. Ha traducido al vascuence (?) *Liberalkeriari aitzi*, 1968; *Praktikaz*, 1968, de Mao Tse-Tung. Tiene en preparación *Iburuzka gorria*, del mismo autor. Reside en Biarritz.

Ikusten dogunez, 20 urtegarrenean, Mao'ri esker, ordaindu al izan du euskaltzain osoko izendatzearen zorra, ala Vasconia'gaz euskaldun-euskotarrak iraindutzearen saria ete? 180 graduko jira-bira egin ondoren beste aldera jo eban, ez baiña euskotar zintzoenganako gorrotoan, ori lendik ekarran, Neguri'ko bizitza burges alditik. Ustaiaren ertzak bat!

Krutwig onek asmatu eban gure izkuntzan sortu dan naste-borraste guztia; sendia, gizartea ta bizi-molde guztiak irauli egin bear ei ziran, ta eurekin batera, alkartasunerako ta alkar-izketarako dan tresnea berbera, euskerea. Zelan? Lengoak lortu eben batasuna ta egin eben guztia ankaz gora botata. Ta, ganera, Euskaltzaindian jarratzaille onak billatu ditu (izkuntza arloan batez ere).

Norbaitek itandu legike: Zergaitik ez da auteskunde bidez arazo ori zuzentzen? Ezin da olakorik. Erderaz esaten dan lez: «Ez dira dauden guztiak eta ez dagoz diran guztiak». L. Akesolo, P. Mujika, A. Mokoroa, S. Onaindia ta beste asko laguntzaille gixajoak dira, gulako ezjakiñen antzera.

Alboan ikuzi zeinkez; 24 dira botodun euskaltzaiñak. Euretatik zazpi mugaz andikoak, burrukaren muiñean sartzen ez diranak edo pake zaleak; beste izki asko oraintzu kendu arren, «h» ori erabiltzen dabenak. Emengoen artean batzuk, barruko kirtenkeriekin minduta, aspaldian ez dira batzarretara joaten. Beste batzuk, Villasante bera aurrerengo, nai ta nai ez, danori, zorioneko euskerantoa sartu erazoten dabiltz. Beste batzuk, azkenez, pakea nai ta obarik ezean, sendoen agertzen diranen aurrean makurtu dira, ta sendoekin batera «kargudunak» gaur oneitarikoak dira. Ta, laguntzailleen iritziak? Txapelketetan eta sariketetan, euren artekoeri maiburuak emon, gero euren lagunak sariz ornitutzeko. Bear ba'da, iñork ez du ain argi olakorik esan, ba... agorik-ago darabilgun egia da, besterik ez.

Eta gu? Len esan dogun bezela, aurrez-aurre burrukatzeko gertu. Euskaldun-euskotarrak, azpikeri guzti au ezaguturik, ez dogu «euskaldun» utsen agindurik ez «begi-onezkorik» onartuko. Idazkera aldetik Erri-bideko arauak betetzen alegundiko gara; beste alde guztietatik, jo ta ke, euskotarrak esnatzen! Ba-dakizue orain zergaitik, gu, Euskaltzaindirik ez ba'lego lez, gabiltzala.

Irakurle, aztertu egizuz gure esanak; egiak diran ala ez ondo begiratu ondoren, gure iritzikoa ba'zara, itxartu, esnatu zure inguruko errikideak... eta ondo lotu sakelak!

ARENAZA'TAR JOSU

LARRA'KO OLERTI-EGUNA

Azillaren 26'gnean, Kristo'ren Erregetzaren egunez, aurtengo Oleri-Eguneko batzarra ta sarien banaketea izan genduzan Larre'an. Etorri bear ziran batzuen gaixoaldiagaitik eta goiznabar laiñotsu ta izozkoagaitik —ez bai ziran eguzkiaren izpi motelak eguardirarte urten— ez giñean notintz geiegi bertaratu. Ala ere billera alaitsu ta anaikor bat lortu genduan egiz.

Sakon be sakon jokatu zan alkarte ontan. Lenen ta bein, Aita Santi aipatu bearrean gagoz, Berak, ba, zertzelada guztiak bere betiko ardura maitekorraz gertatuta eukazan. Onela, bere zuzendaritzaren babespean, dan-dana txik egokitsu jazo zan.

Billerarako Aita Zaitegi, urte askotan Euzko-Gogoa'ren irasle, zuzendari, ta banatzaille izanikoa bera, deituta egoan; ta benetan poztu giñala guztiok bera ikusiaz. Ni, ogetamar urte dirala, beragaz Guatemala'n egona nintzan, ta barriro 1958'gnean Bilbo'ko Artekalean azkenez ukisi neban. Larre'an batutako geienak be bardin, urte mordoa zan bera ikusteke egozala. Meza emotean egin euskun itzaldia —Oituraz Nemesio jaunarena dana, baiña aurten ezin etorri izan— egitan barrukoia jakituriz betea ta mamintsua izan zala.

Mezea amaitu ondoren, areto aundi baten batu giñan danok. An be, ta onetarako deitua zanez, zentzunez eta euskal-kutsua edonondik erion Euskal olertiaren eta Olerki-gintzaren azalpen sakona, sarkorra ta bizia egin euskun. Ez da aaztuteko zera. Gure euskal Olerki-aroak goguratuz, gizaldi ontakoak iru belaunaldietan banandu ta barruraiño aztertu zituan.

Baiña nire gaurko lanari ez dagokio ontaz geiago luzatzerik. Ia orduterdiko azalpen sakonak merezi eban ain zuzen gure txalo ta gorapen sutsu ta arranditsuak, bitarteko alkar-izketak, Apraiz, Peña, Arostegi, Aita Sati'k berak eta beste batzuk emon euskuezan eretxiak, bitarteko izan ziran gaiaren ertz guztiak ikustatzeko.

Gero, Praille-etxe barruan bazkari anaikorra, ugaria, merkea ta gozatsua beti lez. Bazkari-ostean, sari banaketea, bertan —atadiko otzaren bildurrez. Lenengo saria Olerki Lirika-saillean Olabeaga'tar Iñaki Anaiak jaso eban, bere «Jai-egunetan» sorta ederrakin. Ta aipamenak sail ontan, Aurre-Apraiz'en «Itsu gaixoa»; Muniategi'tar Sabin'en «Izadi lorratzez» eta Bernardo Atxaga'ren «Mendiak illuntzen doaz».

Poema saillean, gure edestiari buruzkoa dan «Etxera begira» Ugarte'tar Martin'ena izan zan saritua. Danera eundik gora izan ziran leiaketa onetara bialdu izan diran olerkiak. Txalo bero-beroak entzun zituen. Martin'ek berberak zabaldu euskun bere elebarri «On egiñaren obaria» agertu barria. Berreun orrialde dira guztiz. Ez dot baiña oraindik irakurtzeko betarik izan. Bera Legazpiarra danez, gipuzkoeraz dago.

Gero, Aurre-Apraiz'en olerki batzuk entzun genduzan, baita Olabeaga Anaiarenak ere, ta Ugarte'ren olerki ederraren zatitxo bat. Azkenik, Aita Zaitegi'k berak, bere aspaldiko olerki eder bat irakurri euskun. Danok ixil-ixillik, a zan itzak zurrut egin naia! Aita, semea ta Ikurriñaren arteko alkar-izketea, bai egiz biotz-zirarra emon oi dauskuenetarikoa! Niretzat, gaitza benetan obetzea. Ordu erdiko luzeerea, baiña orok lilluratu lez gengozan, prailleen jantokian zan laiño-peko erdi-illun aretan. Ez yakon iñori bururatu argiak piztutzerik ere.

Guenez, Aita Onaindiak, adiguri lez, bi idazti, ara eldu giñan bakoitzari emon euskuzan. Bata, Solozabal'tar Paulin'ena, «Gizadian» du izen burua. Bestea, Luis de Arostegi'ren «Poemas Inacabados», Aita Santi berak «Poema amaitu bakoak» deituaz euskeratuak.

Ta otza kanpotik baiña biotza eusko zaletasun ta berotasunez pil-pil eta gaiñezka genduala ori bai, beste ereti baten orrelako euskal-kutsudun batzartxo bat izateko asmoz, banandu giñan. Eskerrak berriz Aita Santi'ri, Olerkiak jausirik doazanean, bera adoretsu, au lako biltzarrak gertatzen aspergaitza dan ezkero. Olako egun zoragarrizkoak bear doguz euskaldunok!

Amaitzeko eskaritxo bat Aita Zaitegi'ri, Pozik ikusiko geunke, Aita Onaindia'k noizik beinka degian bezela, gure AGUR asterokoan zure idazlantxoren bat. Betarik izatekotan igorri eiguzuz mesedez. Tartean zure zain gagoz.

Laister arte, ba, ta agur.

ARREGI'TAR JOSU

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Olerti-Eguna

Idauan urteetan lez, Kristo Erregeren egunean, etxekotasunez ospatu genduan, Larre'an, Olerti-Eguna.

Askotzarik ez giñan batu izan, baiña, bai, anaikiro alkar maite dogun eta ona ta ederra be biozkiro maite dogunzan mordo ederra: Alkarreri esatekoak, arpegira esanarren be gaiztotu ez aserretuten ez garean benetako euskaldunak. Ona ta ederra maite dituan gizasemea ezin aserretu bere egin daiteke txikikeri ta arinkeriekaitik. Ardandegietako bertsulariak lez: Esatekoak eta bost, argi ta garbi, esan alkarri ta gero, leen baiño be lagunago. Auxe da, izan bere, euskaldunen izakera benetakoa.

Gerokoak geroko, Zaitegi'tar Iokin jaunaren itzaldi sakon, mamintsu ta jakituriz orniduak entzuteko zoria izan genduan, bai elizan eta nai batzar-tokian. Sakonkiro azaldu euskun, mezatan, zer dala-ta artu bear dogun, Kristo geure, Erregetzat. Gero, batzar-tokian, olerkari ta olerkieri buruz ta abar mintzatu ekigun eta bai azaldu be, argi, garbi ta bikainkiro, euskera zeatz eta txukunez, gure gogo eder-berai egundoko ase-aldia ezarriz. Euren bizitzarik geienean atzerri-aldetik ibilli izan diranen artean gitxi izango dira jaun jakintsu onek bezela ondo ta errez euskeraz itz egin daikenik.

Gero, bazkaria alkarregaz anaikiro; sari-banaketak, olerki-irakurketak, alkarizketak eta abar. Alkartasunezko egun ederra!

Liriku-saillean, aurten, lenengo saria, Olabeaga'tar Iñaki Lasailletar anaiarentzat izan da. Poema luzeen saillean, ostera, urterik geienetan lez, Ugarte'tar Martin olerkari jatorrarentzat. Ugarte onek edestieleberri ederra argitara dausku, oraintzu. Olerkari bakarrik ez dogu, beraz, legazpiar eleder-zale au.

Itz baten esan-da, pozezko eguna izan genduan Larre'ko Olerti-Eguna.

Eskerrak Onaindia Abari, jaiok ain aundikiro atontzen dauskuzalako. Bardin, Larre'ko karmeldar guztieri be anai-maitetasunez atozten gaituez-eta. Lekaide oneik bezelako eragilleak dituan izkuntzea indarbarritu ezeze goirengo maillako elederrera be elduko da, oztopo ta eragozpen guztiak menperaturik. Bai orixe!

AURRAITZ

POZAK ETA KEZKAK

IKASTOLEN «LAGUNAK»

Arrasate'ko gora-beerak aldizkari bi edo irutan irrakurri al izan doguz. Baiña albisterik barregarriena, arrasatetarren artean zabaldu diran ixilleko orri batzuetan irakurri dogu. Españar Komunista Alderdiarentzat, gurasoen eskubideak: «la *pintoresca* teoría de que la educación pertenece a los padres» ei dira. Sekula alakorik! Zelan demostres ekarten ete ditue orreik umeak mundura? Ala, norberanak euren eskuetan itxi bear? Tira, tira!

BESTE «LAGUN» BAT

Abadea ei da berau, eta Bilbo'ko Eleiza batera etorri barria. Ikastoleri buruz ei diño, erderaz oitura daben lez: «O nos sirven para la revolución o las echamos a pique». Ederra kontua ta ederragoa oraindik tentel orren errizaletasuna! Eskerrak bere Txanburua ez dala «lo dagozenen arteko», baiña dana dala, berak nai ez ba'dau be, astinduko dogu berbalapiko ori. Lanera kaiara txotxo! Zulako alperrik ez dogu bear-eta!

ARGI IBILLI

Eurak esana da, ta ez bein bakarrik: «h» Jainko bakuen «banderea» da: Euskal nortasuna ito egin bear da, ta orretan gabiltzanok «h» izango dogu, ezaugarri. Neska-mutikoak, zikinkerietan naastu ta begiak zabaldurik azkatasun osora ekarri bear doguz, gero geure morroi apal izan daitezan, orretan gabiltzanok «h» dogu lokarri, Jainkorik bage, euskaltasun bage, ezkontzarik bage, amar urte barruko Euskal-erria, berea aztuta, iraultzarako gertu izango dogu, orduan be, «h» izango dogu erakusgarri.

PIPER-ZIRI

GAZTE EGIA

Ene ezkertien lider bat bezela aitortzen duk ik ire burua. Atsegingarri zaik benetan, neska mutillen, ta zenbait gazteen gaiñetik, ire abotsa azaltzea.

Ziur zakiat nik, ik ezagutzen nauk, askotan igarotzen gaituk bata bestearen albotik, eta ondora irixtean, onela mintzatzen aiz: «Kaixo Erramun, agur».

Sarritan galdetzen zioat nere buruari, zergaitik mintzatzen aizen nerekin euskeraz, alegia i euskaldunen aurkakoa izanik?

Beste gaiñuntzeko ezkertien antzera ere jokatzen duk ik noski. Arpegia eman bearrean, itzak modu batekoak, eta beste eratakoak eginkizunak, azpijanean ibiltzen aiz. Dena dela ez duk asko arritzekoa ire jokabidea. Izan ere ondo aski agertzen duk, lezioa ongi ikasia daukakela. Mesede bat eskatuko nikek ordea; alegia emendik aurrerantzean, nerekin ez ibiltzeko «teatroa» egiten, ondotxo zakiat-eta ire pentzakera nolakoa dan. Beraz urrengoan, berriro alkar topatzen geranean ez neri ziria sartzen alegindu, alperrikakoa izango duk-eta. Orren ordez esan zak nai dekana: «Buenos dias», edo «viva Mao». Nik beti bezela «egun on» erantzungo diat.

* * *

Lider ezkertiarra. Gogoratzen ote aiz ire gurasoatzaz? Abertzale zintzoak ituan. Berak saitu ituan, denbora aietan, iri ta iretzako jana, jantzi, ta etxe bat ematen. Orretaz gaiñera, ezin dek ukatu, beren neurrian gizapide onuragarri bat ematen, amaika aldiz alegindutakoak. Baiñan ene mundu zitala! Ire gurasoak ori egiten ari ituan bitartean beste batzuk ondo asko alegindu, ire buru ori berotzen. Apika, egun batean orotuko aiz ire erru aundiatzaz. Orduan ez ote duk berandu xamar izango?

Ez duk ire gurasoaz, siñisten (nork ekarri ote indun ludionetara?) eta maitasuna nolakoa dan ere, aaztutzen joan zaik. Gogorkerian bizi aiz. Or arkitu duk nunbait ire elburuaren jatorrizko erantzuna. Gogorkeriak, gogorkeriz salatzen dituk. Sarritan ia geienetan ordea, pake-zale, zuzentasun-zale ta askatasun-zaleen aurka ere berdin jokatzen duk. Gauzak nastu dituk, eta aldatzen ari aiz. Gogor zalea biurtu. Bein ta berriro, desegiteko diran tresnak erabiltzen dituk. Dana mostu, puzkatu, autzi ta zapaltzen dituzten sistemak

Jakin zak gauz bat: Gaur erriak dauzkan arazoak, biar ere izango dizkik, beste eratakoak nai ba duk, baiñan arazoak. Eta arazoaren erantzuna, bere konponketa, zuzentasunaren bidez lortu bear duk. Ez iñolaz, interes berezi batzuk tarteko dirala.

Onezkeroz oitu aiz agintzen, ta benetan ire jarraitzalleak, atzetik dijoaztela jakiteak poztu egiten au. Ire naia, burua beti goiko maillan edukitzea ote duk?

Siñistu eidak, penagarria izango ukek ori orrela ba'litz. Gutxien itxaroten dukenean gaur iri jarraitzen ditenak, biar aaztu egingo aute. Jendea modaren indarpean mugitzen geienetan. Beraz iri ere etorriko zaik ordua modatik pasatua egongo aizena. Orduan apika bakarrik arkitzen aizenean, izango duk noski denbora luze bat, ire jokabideak nolakoak izan diran aztertzeko. Bitartean, goiko maillan arkitzen aizela, ajola gutxi izango dik iretzako noski, adibidez jakiteak metralletak, gizonak iltzeko, ta ez beste ezertarako sortu diren tresnak dirala.

Bestaldetik, esan bear diat, arriturik negoela irekin. Gauz bat ezin diat-eta ondo ulertu. Ire erriaren aurkakoa izanik, nolaz jarraitzen duk bertan? Marx, ire maisua bera ere, sorlekua utzi eta beste leku batera iges egiña izanik? Edo ta eskuetan «negozio» politen bat ote duk, eta beragaitik igarotzen al duk, ire gurasoen aberrian?

Amaitzera nijoak gauz bat bakarrik esanaz: Ainbeste urtetan eri eta gaixo dagoan erriari, illobira eramaten algeintzen ari aiz. Gizon batentzako ori duk, jokabide zital ta naskagarriena. I bezelako batek bakarrik egin lezakena.

RAMON ZAPIRAIN

Boutique

Cerra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

AIZE BERRIAK UZTURRE'N

Aize berriak, bai gure Uzturre aparta, zarrean. Gurutzea zuritu dute, ta eskudela berritu. Gero, udazkeneko egun garbi, gorri, zoragarri batean meza, dantzariekin ta guzi...

Zein dan ederra, mendi gaiñean, zeru ondoan, txistuaren soiñu ariñ, eztia! Gure begiak, zerura begira daude... begiak bakarrik?

Meza bukatu ondoren, Tolosa'ko mendigoizaleak omenaldi bakan ta sakona egin diote Teodoro Agote'ri. Ondo merezia gaiñera. Teodoro Agote, mendigoizale purrukatua —len, orain eta beti bere larogei urteekin— Zorionak!

Bai, gizonen mitoak erdoitu dira, zimeldu dira, gurutze zuria bakarrik gelditzen da zutik, mendi tontorrean, pake, amodio, zoriona —egizkoa— eskeintzen!. Bai, aize berriak Uzturre'n!


Etor bedi berritasuna, onerako baldin ba'da, Gizona askatzeko baldin ba'da! Ta, ori, gauza guztietan! Bai, ondo ikusten da emendik Uzturre'ko gurutze zuri-zuria! Zein dan polita!

Zorionak, bein eta berriz, Teodoro Agote'ri, ta nola ez?— Pello Elosegi «mendi-jaleari», pesta alai onen antolatzaille bizkorrari! Uzturre'ko aize garbi zorrotzak bai ondo indartu dutela gure gogoa, lanean gogoz jarraitzeko! Bearra ba-dago noski! Batez ere gure une zailletan!

Utikan alper, motel, kaiku, garratz ta naspil zaleak! Ezin gerala alkartu? Lan egin dezagun beintzat, bakoitzak bere aldetik— mutur joka ibilli gabe! Izan gaitezen ez-berdiñak baiña ez etsaiak!

«Mendi gaiñean beso zabalik
zauden gurutze laztana,
otoi-egiñez muin eman zale
apalki nator Zugana».

(Emeterio Arrese)



IGARATZA'TIK AGUR'ERA

Lenbizi, Mikel Deun'era, nere osabarekin; orain Igaratza'ra, berriz nere osabarekin. Zelai berde zabalak, pagadi gorri illunak. Aitzgorri, Anboto, Putxerri, Irumugarrieta... erpin alkaitsu ta bikaiñak.

«Mendi mendian otea, lore oriez betea...»

Artalde batzuek ere bai, baiñan gutxi. Emen eta an, zaldi bat edo bi. Leku paketsu ta bakartia benetan, Igaratza!

Jende gutxi —mendigoizale gazte batzuek— ta kotxerik ez. Ezta bear ere! Aize garbi, otz, osansungarria! Ixiltasuna, bizi-indar paregabea! Nun nai, baztarretan, bide-txigorretan, gogoramen zoriontsu ta atsegiñak, parra-parra!, Berrogei urtetik gora, gogoramenez bizi gera... bearko!

Zeru urdiñean, arranoak egan... arro-arro. Arranoa, mendiko Errege altsu, paregabea! Igaratza'n, refujio zarraren ondoan —ez da bizi nere osaba Pantxo zana, mendizale purrukatua— ara mutil gazte bat txistua jotzen eta neska lirain politak ariñ-eriñ dantzan!

Mendia, ederra, zoragarria; amodiozko erokeria! Ongi-etorriak bai, mendi mendian sortzen diran adiskide zintzo ta asmo onak! Zergaitik ez ote dute geiago irauntzen? Gizonak, ain gera aldakorrak! Aizea baiño geiago.

«Goazen mendirik mendi, baserririk baserri, esanaz: Alaitasuna!

Aita Latasa, eskolapio euskaltzale jatorre, zeruratu zaigu. G. B!

MATXIN

KONTU KONTARI

Arrautza Opille

Gure Don Pako'k euskeraz ikesteko asmo bero-beruen dabill. Liburu lodixok, astunok eta ariñok, erosi, eratu ta sur ganien ipiñi «antiparrok», or da jardun-jardun euskeraz ikesi bier dabela bene-benetan, eta ganera, laster.

Eztaki beste gauza bat, Don Pako'k. Neuk ez berari, or konpon, baiña zuori esango'tzuet. Euskerie, besterik ez da-nien, ikesi nai dabenak zerbait, ondo dago liburure jotie. Baiñe, eztaki Don Pako'k, euskeria, titixe lez, kuman, aman agotik artu bier dala, ondo bera sartu, eruen ta jarraitzeko bizi-bizi guzti-guztixen.

Baiña, ixek eta bera dan nire nausixe, ba, or-konpon Mari-anton. Berak ige-rriko'tse, bier ba'da...

Bai igerri be... Egun baten, liburu gizen ori erdi jan ostien, or doie mendi-rutz, gure don Pako. Eldu jaku basarri aurre batera, ta burutu dau: «Auxe nire aurrerapena, bai. Gaur batituko da nire euskera eder-eder au, bai orixe.

Ate aurrera agertu da etxeko-andra eder bat.

—Arratsalde on!

—Bai bedorri be!

—Baukazu «dur-sagarren omeleta...?»

Bai laster, andre orrek egin dabela barrurutz. Bere gizona eskatzien, ba, abarka lotzen. Eguerdi ostekue eiñez, ta emazte orrek, arnasa baten, diñotze:

—Joxe, or daukezu gizon bat. Alemana izen bier dabela uste dot. Zer esango'tset ba...? Erretolika sarratuen diño zozer...

—Esan'zoixu eztakizula aleman, ta kitxu, Erramona.

Urten dau:

—No, no saber mucho-poco aleman, Jaune.

Don Pako'k, zuri-berdetute, zaunke:

—Tortilla'ik ez daukezu, andria!

—Ene, jaune, euskalduna da beroi?

Don Pako'k, esku artien euken liburu «gramaikala» ta ez makala, bota dau sasitza' ta garrasi baten ostera be zaunke baten:

—Bai, bai, euskaldune, liburu bako ta tortilla gose dan euskaldune.

—Aurrera, Jaune...!

JUAN JOXE ARRIZABALAGA
«MARKIÑA»

txinatarrak erbestean

Ez da gauza obeagorik erri baten egoera ikusteko, zenbat erbesteratzen diran jakitea baiño. Onegatik, dardaragarria da munduan zear zenbat txinatar dauden jakitea. Ginebra'n dagoan «International Catholic Migration Commission» deritzanak dionez, berrogei milloitik gora omen, eta auek Taiwan (14 milloi); Hong Kong (4 milloi) eta Macao'n (170.000) kontatu gabe.

Beraz, auek zenbatu gabe Asia'n 21 milloi erbesteratu; Afrika'n 93.500; Amerika'n 642.805; Ozeania'n 99.195 eta 89.363 Europa'n.

Baiñan Asia'n gaur-egun gertatzen ari diranak jakin aal izateko argi apur bat emango digu nolaz zabaldurik dauden jakiteak:

Nun	BIZTANLEAK Guztira,	Txinatar,
Thailandia	34.800.000	4.930.000
Indonesia	113.000.000	4.800.000
Malasia	10.500.000	3.602.000
Sud-Vietnam	17.800.000	2.660.000
Singapur-Malaca	2.250.000	2.200.000
Cambodia	6.700.000	2.000.000
Burma	27.500.000	500.000
Filipinas	39.000.000	276.300
Laos	3.000.000	60.709
Japon	103.500.000	54.000
Korea	43.000.000	26.600
India	550.000.000	15.500
Pakistan	144.000.000	3.104
Ceylan	12.000.000	630
		21.128.843

Goazen zenbaki auek argitzera. Ikusten degunez Thailandia'n % 14,2 txinatarrak; Indonesia'n % 4,2; Malasia'n % 34,3; Ego-Vietnam'en % 14,9; Singapur-Malaca'n % 97,8, Canbodia'n % 29,9.

Zer edo zer ere esaten digu onek: Thailandia'n dauden bost milloi orretatik % 80 Thailandia'n jaioak dira, naiz gurasoak txinatarrak izan. Erbestekoak ongi artuak izan diralako legez tailandiarrak biurtu dira, legeak garbi aski baidio: «Thailandia'n jaiotzen dan guztia tailandarra izango da».

Guri kezka bat sortzen digu onek. Alegia, naiz legez orrela izan, odolez beintzat txinatarrak diralarik, biotzez eta asmoz ez ote diran ere. Ez ote duten bere aberri nagusi bezela Txina artuko, eta egoitz bereziren batean onen alde jokatuko.

Ongi baitakigu txinatarren jokabidea munduan zear daudenetan. Indonesia'n, esatebaterako, eta Borneo'n dirala berreun urte asi izanagatik ara joaten, oraindik txinar mundu berezi batean bizi dira, beren txinar jakintz edo kulturaz, oturaz eta beren aurrekoen izkuntzan itzegiñik.

Ongi gogoratzen gera, Hitler'en garaiean munduan zear zeuden alemanak zeiñen ongi erantzun zioten onen deiari. Eta iduritzen zaigu, gaur edo biar, edozein egoitz larrian politika aazturik txinatarrak dirala gogoratzea, au da, txinatarren deia entzutea.

UXOLA

Euskera ain Maite Zuten Aiek...!

Gure gazte denporan ezagutu nitun gizon jator ta aundi aien berrik eman nai nituzke gaur. Aita Agirre ta Aita Egibar, aztu gabe ere Aita Laskibar Jesulagunak.

Aita Agirre jaunak egin zitun lan aundiak, bateze orduko Luistar artaldean, ikaragarriak izan ziran. Gogoratzen naiz, bein batean nola bildu giñan Itziar'en, gazte pillo ederra batuaz, eta bere itzaldia Itziar'ko balkoi artatik. Gure taldekoak Getari'tik joan giñan, Aita Nikasio Larrea ta Aita Prantzisko'kin! Egun ederra ta zoragarria igaro gendun!

Beste batean, Aita Egibar zarauztarrakin alkartu nitzan Ezkio'n... dalako Ama Birgiñak irtetzen zuala zelaian eta... ta esan zidanean: «Ai motel, emen ez zegok ezer, txorakeriak baiñon...» Guziok dakigun ondorenak agertu ziran Ezkio'n, guzia ezereztuta gelditurik.

Aita Lazkibar ostera, bein baiñon geiagotan etorri zan gure errira itzaldiak ematera elizan! Aren deadarrak entzunaz, alako bildurra ematen zigun, eliz guzia dardaraka jarriaz...

Aiek urteak jaunak! Beintzat, ordun Jaungoikoa ezurretaiño sartua genikan. Zintzotasuna zan neurri ta gaur egunetako gora-berak ikusita, alde aundia dagola bai dakigu.

Ze azken izan zuten gizon oiek? Urteak bizkarrera eltzen diranean, emen beste biderik ez daukagu, Jainkoari kontu ematera joan bear!

Zarautz galdu zorian zegoala, Aita Egibar ikusi ta alkar-izketa egin gendun. Nik esan nion: «Guazen emendik jauna, gaiñian dira-ta...» Berak berealan erantzun zidan. «Ez motel, ni emen gelditzen nauk» Nik ostea: «Ez al du bildurrik?» «Ez, denok iges eginda, nora joango dek Euskera?»

Esan eta egin. Bertan gelditu ziran bi jesulagunak. Bai berealan bialdu ere amerikaruntz... ta orrela eldu ziran San Salbador urira.

Nik geroztik, Aita Egibar'i eskutitz batzuk idatzi nizkion. Bere erantzunak, ikusgarriak ziran! Azkenik, urteak joan ta Aita Agirre, San Salbador'en il zan. Aita Egibar ostera, bere jaiot-erria etorri zan zaartuta. Bere etxera joan nintzan ikustaldia egitera nere etorrialdi batean Karakas'tik. Antxen zegon leio aurrean itxasoari begira, itun ta itz egiteko gogo gutxikin. Nungoa ta zein nitzan galdetu zidanean, erantzun nion, ta berealan alako piztu aldia izan zun, ta negar malkoak anintz ixuri zitun. Geroztik, ni berriro joan nitzan Amerikaruntz. Alako batean idatzi zidaten nola il zan. Bai jendetza ederra eldu ere Zarautz'era. Inguruetako errietatik autokars ugarikin! Aita Agirre, Aita Egibar. Goyan Begoz!

Aita Larrea ostera. Prantzi'tik Kuba'ra joan zan. Kuba'n bero aundiak diranez, ez zion onik egiten. Izerdi ugari aterea zan gizajoa. Bertako Kardenal Arteaga ordukoak... ez zun ain ongi artu. Orduko gertakizun aiek, orduko apaizen jokabideak, besteen txaritzat ziranak, askorentzat onartuak ziran. Nun egia? Bakoitzaren kontzientzian noski. Bakoitzaren jokabidean ta ez iñoren naietan.

Arteaga jaunak, bialdu zun inguruko erri txiki batera ta an egon zan umeeri dotriña erakusten. Ez ordea osasun gogorra izan orduko, batera ta besterako ebillerak, minkoak bai ziran! Biotz minberak eraginda, orra Larrea'tar Nikasio jauna nola il zan Kuba'n.

Gizon on ta aundiak ziran aiek. Aitzol, Oyarzabal, Lizardi, Arana, Orixe, Madinabeitia, Agirre, ta beste eundakak.

Gu bizi geran bitartean, ez gera ez aztuko aietzaz! Ikusi bitez oraingo gazte auek, ze nolako lanak egin zituzten. Ikusi bitez, zenbat maite zuten EUSKERA! Ikusi bitez, aien ta gure orduko ta oraingo jokabideak euskeraren alde. Bakoitzak bere izkuntza maitatzea, ez det uste obena danik. Jakin bear dezute gazteok, aiek beren biziak eman zituztela gu-guzion onerako, euskeraren onerako, ta ez esan or eta bazterretan, aztertu gabe, aiek ze portamen izan zuten. Artu ditzagun ontzat aien lanak ta ez jarrai ontan alkar muturka eztabaidetan. Guzia izan dezala euskeraren alde. Batu gu zaarragook eta zuek gazteagook. Utzi uzkeriak, ta jarrai beti bide berdiñean mendi muturreko erpiñera eldu arte. «Euskera, ez da galduko», esaten nun aurreko idazlan batean. «Euskera eztabaidan», bestean. Orain ostea, esango det, Euskera artu dezagun geren buru, ta maitatu biotz-biotzetik. Ori egiten dun sendiak izango du bere ordaiña; Euskera zaitzea ta ez galtzea.

E. OZKIN

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK
ZAZPI-KALEAK
Martín Aldazabal
TENDERIA, 3
CASCO VIEJO
BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Idazti Barriak

IZENA: KRISTOREN ELIZA.

EGILLEA: AITA JOSE ANTONIO GOIRIA, Karmeldarra.

IRARLEA: GRAFICAS BILBAO.—Gordóniz, 28.—BILBAO.

URTEA: 1971-VIII-16'an.

Urte bete baiño geitxuago da gure adiskide Aita Txanton'ek liburu au eskiñi euskula. Aita Txanton guztiok, edo geienok beintzat, ezaguntzen dogu: euskalzalea izan da eta da emen eta Ameriketan be bai. Ba dogu bere lanen entzute apur bat. Gaur, oso-osoan, erri-bidean, euskera jatorra ta siñismena arturik, jokatzen dau.

Ez da au bere lenengo liburua. Ba ditu ainbat idazti, euren artean: Berrio-Otxoaren bizitza, Goi-bidez, Fatima'ko Ama Birjiña...

Liburu au aztertzen asiaz, lenengo Aita Onaindiaren sarrerea aurkitzen dogu. Izan be, gure Aita Santi sarrerak egiten zalea jaku. Bere lan sakonen artean, au lan txiki ta arin bat izango da beretzat.

Gero egilleak berak egiten dausku berba: lenengo gaurko Eleizearen aldaketak gogoratzen dauskuz, eta, onein oiñarri lez, munduak berak izan ditun aldaketak:

«Asmaketa izugarriak ikusi ditu gizonak.

«Illargi gaiñean be jarri ditu bere oiñak.

«Munduko ertze batetik besteraiño entzun-irazi leike bere abotsa 12gn. orrialdean.

«Elizak be izan ditu aspaldion bere aldaketak eta barrizteak batez be Bigarren Batikanoko batzarraren ondoren.

«Eta barrizteok makaldu ta indargetu bearrean, sendotu egin dabe Eliza. Gaurkotasuna emon dautsoe. Elizak arpegi barria dau gaur.

12gn. orrialdean.

Gero 38 azalburu ditu idaztiak eta Eleizearen jakingarriak ugari ta naikoa sakon aztertzen ditu: Irazlea, Eleiz agintariak, Eleizearen batasuna, Gogo Deuna Eleizan, Eleizearen edestia, askatasuna, aunditasuna, ezuskortasuna... Eleizearen eskubideak, legedia, bereizgarriak... Ikusten dogun lez, gaiak betikoak dira, baiña gaurko giroa aiztu barik aztertzen dira.

Eta zelango izkuntzea darabil gure A. Txanton'ek? Ni ez naz iñor, egia esan, ain idazle ospetsu bat aztertzeko, eta gitxiago beroneri akatzak billatzeko. Baiña bakotxak bere eretxiak daukaguz eta agertzeak ez dautso iñori kalterik egiten.

—A berbearena danean, nik azkena beti —ea egingo neuke: eleizea, bizitzea, eriotzea, kondairea, arimea... Azken au, jakiña, beste era batera mugatzen ez danean. Esaterako: eleiza au, ainbeste eleiza, bost eleiza... esango neuke, baiña baita gure Eleizea, Kristoren Eleizea, erriko eleizea. Onelan esaten da Bizkai'ko erri guztietan, uste dot. Baiña ba ditu Aita Txanton'ek onetan beragaz batera dagozan idazle asko. Nire ustez, onetan Bizkaiereak galdu bear ez leiteken aberastasun bat dauka.

Baita *abadea* Bizkai guztian esaten da, Idazle onek ez dakit zergaitik *apaiza* esateari emon dautson. Edozelan be, ez dauka gauza onek garrantzi aundirik.

Sarritan, esaterako 24gn orrialdean «Sinagoga isten da» agertzen da. *Izten* neure ustez ondo dago eta idazle askorentzat eredu da: *Itzi* izan bear leuke *artu ez*, eta *itxi*, zabalik dagoana egiten da. Bardin izan bear *izten* eta *ixten*.

26gn orrialdean *gurutzako* agertzen da, eta nire ustez ondo dago, baiña a izenarena ez ba'da, *gurutzeko* izan bear leuke, *etxeko* esaten dan lez, baiña *gurutzea* esaten ba'dogu erriagaz, *gurutzako* be esan bear.

Baiña itzi dagiguzan ezerezkeri oneik. Txanton'en esukerea garbia, jatorra ta argia da. Erez-erreza. Joskerea be ezelango erderakutsurik bagakoa.

Liburu au, euskera jatorra artzeko oso egokia da ba, eta Eleizeari buruz gaurko arazoetan eretxi ziur bat eukiteko be ez txarra.

GAMIZ

MATXITXAKO XII

MATXINTZALARIEN ITZ EZAUGARRIAK

GAURKO BERMEOTARREN BIZITZAN

Ez ziñeskorra da, baiña MATXINTZALARIAK itxas-lapur eta «untzizkillu» edo «Corsarioen» aurka egindako itxasgudaketatik ainbat gizaldi igaziarren, aldi aretan Bermeotarren gogo-biotzetan sartuniko itzak, gaur egunean ere dantzuguz, eta ainbat gauzetako itzetan ezarrita dakusguz, eta itz mordatxo guztiok adierazoten dausku «bildurgarria», «ikarea», «izugarrizko gauzaren bat», eta olantxe erriak diñardu:

SaltaMATXIÑUE, landatan jaiki-jaikika ibilten dan anka-metxudun piztitxoa.—Udabarri-Udaldean, solo eta landetan orretariko piztitxoa ikusi eta ume-artean esan ezkeroan SALTAMATXIÑUE, ume dan-danak «Aitearen egin-orduko» igeska, arin doaz, MATXIÑO izenak ikaratuten dauz eta arin baten alde-egiten dabe.

Beste izen bat: MATXILGO, ikaragarrizko itza izan bear eban aonek. Gaur ere, gastetxoen artean baso-aldera joan eta sasi edo zugatzaren baten txori-abia ikusi ezkeroan, edo landatxu baten malluki txortea, edo loratxoak, edo igali edo edozer gauzatxoren bat, eta gastetxu orren-artean nor-baitek esan ezkero MATXILGO, aldra guztiari adierazoten emoten dautso lenengoz berak ikusi daben gauza ori, berana bakar-bakarrik dala eta beste guztiak ez daukoela ezetariko zer-ikusirik, itz ori lenengoz mintzatu dabena da «ondasun» orren jaube bakarra, eta beste guztiak ontzat artu bear, ezetariko goira-bera edo eztabaida barik.

MATXILGO, ene ustez, izan bear eban gure itxasoetako DIDARRA edo «GUDA-SANTZOA», gure erri eta itxaso-zabaletara gentza edo bakea erakarri euskun MATXINTZALARIEN oyua.

MATXILGO, itz orrek adierazoten dausku MATXINTZALARIAK, ILGO zaitu ez-pa-zara menperatuten, itxas-lapur eta untzizkillu edo «Corsarioen» aurkako itz garratza MATXILGO.

Bermeo urian bakarrik itz au entzuten da, gizaldiz zear gure-aldi aonetara-arte eldu da, iñongo Iztegietan itz au ez da agiri, itz-errikoi bakan-bakana da.

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR



GABON ETA

URTEBARRI ON

opa dautsuez

BANCO

DE BILBAO'K

Laster 365 egun barri bizi izaten asi bear dozu. Urte osoa; dana bizigarri.

Urte barrian Gabon jaiotza lagun izan dagizula.

Zorionak!

Garai Zaarrak

—Aita! Emengo aldi?

—Uilan, egun on! Oso eguraldi politta dago eta etorri egin naiz.

—Mendi auek lengo tokian daude. Baiñan, onera oso gutxi iristen.

—Tontorrak eta ibaiak ez dira aldatzen.

—Ala izango da! Baiñan, aldaketak obetogo ditugu.

—Uilan! Gaztetan obeto bizi ziñala, beraz?

—Ni baietzean izaten naiz. Ordea, nere baikortasuna mintzen didatenak izaten ditut. Orixe: oraingo gazteentzat zertxo berri oro bikañak eta txito goragarriak. Izandakoari txaloka, ari? Bai zera!

—Orrenbesteraiño aspertzen al zaituzte?

—Guk, ioandakoentzat esker onegia omen degu. Bestetik, berriz, enda zaarrekoak omen gera. Berririk guk ezer ez asmatzen! Iñolaz ere, zulo asko guk!

—Ioanak, leengo garaietan ederrak eta begibetegarriak izan ziran, noski! Izandako ua txarra izaten asi zanekoa zertaz neurtu? Zerbait nardatzerakoan bertan, egiaren antza gabe ibiltzeak txorakeria dirudi. Ergelkeria eta txatxukeria.

—Nik beintzat antziñakoak goraipatzean, oraingoari ez diot zaputz egiten. Oraingoa ona dala aitortzen dedanean, leenakogoen kilima bigun-eztia aaztu bearrik ez det izaten. Batzuk eta besteak beren garaikoak izan. Uzta bezela: udaberrian udaberriko iakiak: marrubiak, baba-berriak, keixa gorri-gorriak...

—Euskalerrian ba-da esakun politta. Auxe: Gabonetan keixak.

—Orrek zer esan nai du?

—Uilan! Uda astekoan mutil guztiok muiñoz-muiño keixa-ondopean ale gorrien kuzkuzean ibiltzen giñan. Begia baiño aundigoko anpolai eder aiek ian nai. Gure lei ortatik adiñekoek auxe ikasi:txito keixazale giñala eta sari ederra ematerakoan orixe agintzen ziguten. Zaarragoei olako eta alako lanetan laguntzen geniela eta saria izango genduala. Ez nolanaiko esku-erakutsia, gero! Gurean Gabonak sari-egun izaten eta aiek guri orixe emango zigutela esaten: Gabonetan keixak...

—Eta, ematen al zizkizuten?

—Ordurako saridun giñana aaztutzen zitzaigun.

—Egia da, bai! Zuen oiturak eta gure oiturak oso bestelakoak dirala. Orduan zuek Eguarri Egunak eta gabonak beren izen eta ots utsez pozkizun zenituzten. Gazte guztientzat etorkizuna ere BETI GABON. Poz-iturri guren. Alaitasun utsa! Lan bikaiñak egiteko aldi berexi! Ortaz gaiñera beste egirik ere ba-da: etorkizuna ikuskizuna dala. Beintzat, izango omen dana ez da gaurkoa. Lengo garai ioanak ere ez dira gaur! Beraz, orain gorria *aintzakotzat artzeko beldurrez eta espaz adiñekoek ioana gogoan eta gazteek geroa amets! Bi aldi oriek irudimenaren abaro goxoan egiten lo! Bakoitzaren aiurriz, batek leena edertzeko aukera guztiak ditu: urrengoak ere izango dana margo bakunez eta nabarrez ustiatzeko abaguneak ditu. Bati akar ezin egin ba'zaio, besteari mokolo zergatik esan?*

—Itza bor-borrean ialkitzen zaizu. Zere giro ona ortantxe dagoala dirudi. Garai zaarren apaintzaille bikaiña zerala esan liteke. Zuk, ordea, bein ere ez al dezu minkizunik izan?

—Atsekabeak eta minkizunak? Orixe! Ugari gaiñera nik biotzondokoak eta egun beltzak eta eramankizun samiñak. Olako elkaitzak neretzat bakarrik sortuak zirala ere askotan gogoratzen nuen. Bai buruauste gogorrak! Baiñan, ioan ziran! Eta orain, leenagoko erasoaldi aiek, zaurikizun nituan ertzik gabe gogoratzen ditut. Orretxegatik, noski, egun eder aiek oroimenean bizi-bizi daramazkit. Ibai-txuloan murgilka ibiltzen nintzañeko ua. Eize onaren ondorengo dantzaldi-oturuntza eta lekaio zorrotzak. Gaurko gazteek siñistu ere ez dituzte siñistu nai. Ondoren, izaro guztian gerok bakarrik dakizkigun eper-kabi eta poxpolin-kabi guztiak. Oiñez ioan eta oiñez itzuli. Osasungarrigorik zer?

—Orduan, ipuietan bezela.

—Ez nuke esango! Nere gaztetasuna ipui-uts izan zala? Bai zera!

—Uilan! Auxe esan nai nizuke: ipuiak beti zorionezko bizitzaz amaitzen dirala. Ipui-esaleari adi-adi gaudenean, gertakizun latzak ere ikarik ez digute egiten. Alakoetan odol-ixurtzeak diranean ere, gure soiñekoak ez zikintzen. Era berean gaztetasuneko egunak gogoratzean, ezeren miñik eta kezkik ez izaten. Agian, etorkizuna beltzago ikustea gerta liteke...

—Gazteentzat ez! Barealdian itxasoko uiñak izaten diran baiño urdiñago eta alaiago gazteak etorkizuna ikusten eta sumatzen eta biribiltzen eta amesten.

—Gudamutil morrontzara ioan aurretik zuri ala gertatzen al zitzaizun?

—Aita! Aita! Ale aundia bota didazu!

—Zer ale eta aletako?

—Gudamutiltza ori auzokoen eta erri atzeratuen auzia da. Gizonak alkarren artean anai diran bitartean olako morrontzarik ez litzake bear. Oraintxe bertan, or iparraldeko Mao ori onera etortzeko irrikitzen dagola entzuten det. Baiñan, ez det uste dalako morrontza ori kentzera etorriko litzakenik.

—Zer esango zenieke antzerkiak ikusiz beren lorra eztiz leuntzera doazenengatik?

—Sarritan, antzerkiak ikustea bakoitzak berak bere bizitzan ikusi izan duan zerbai berrikustea aiñaxe dala iduritzen zait.

—Bai ote?

—Gaiñera, polittena auxe da: ez antzerkirik eta irudietan adirazten zaigunik (areto illunetako, oialean alegia) osoan ez dala iñon gertatua izan. Antzeslariak ipuia bere naiera edertzen du. Areto illunetan ageri izaten diran mintzak osatzen dituztenentzat are esan liteke. Entzun izan dedanez, olako mintzaetan azaldu bear dituztenean iñongo emakume polittenen billa ibiltzen omen dira. Bitartean, egitazko bizitzan eta gizartean emakumeak polittak eta polit ez diranak ikusten ditugu.

—Urteetan gora abittuak beren gaztebizitza orrelaxe edertzen dute. Ertzak eta akatsak aaztu eta egal onak bakarrik gogoan artu. Eta, al danez, oraingo neke eta lanaren dordoa arindu.

—Auzia oraindik ere luzetu liteke. Baiñan, onako au ez aaztu bear: izandakoak eta edestian arkitzen dan oro goraltzaz apaintzen diardutenen maxiaketak ezin gaitzetsirik ez legokela. Bitartean, noski, maxiatzailleak beren buruak zuritu nai. Batez ere, leenagokoei agiraka ekite orrek bere zio iakiña izan. Alegia: oraiña eta oraingo zer berri-berriak goraipatu eta aintzakotzat artze ortan, orrela diardutenek zer-egin atsegingarria aurkitzen dutela. Beren buruak eta beren nortasuna bizi-bizi aurrera atera al izateko abagune egokia. Tamalez, ioandakoen eustazpirik ez dute eta oraingo une igeskorra izan aien zutabe eta irozkai osoa.

—Muxika-bizardun oriei aolku zintzoa ezin emanik ez litzake. Zergatik orrenbesteraiño arrotu?

—Noski! Gazte oriek ekiñean bizkor ba'dira, besteak ere ez al zuten beren erara ekiñari atospenez so egiteko almenik?

—Etekiñari geiegi itsatsiak gabiltzala dirudi.

—Zoritxar-txarrez! Bakoitza bere maillan apalago ba'giña, espa txarrik gabe giñake. Elkarri amor ematen ikasiko ba' gendu, guztiok obe genduke!

ETXEBERRIA'TAR P. S. I.

Ateismoa Beerantza

JABETU ZAN ERRIETAN

Lagun ikasiakaz berbetan, ateismoa (yainkogekeria), oraindik, aurrera yoango dala ta gora egingo dauela, noz edo noz baiño geiagotan entzun izan dot. Eta euskal gazteetan leku zabalagoa irabazten doala, be, bai.

Ta, ola, geure leenagoko esaera a, «euskaldun fededun», leenagokoai ain eder oi yakuna, oraingo gazteai ez yakela atsegin, guzurra ta «mitoa» besterik ez ei da, uste oi dabelako.

Atara daiguzan kontuak.

Oraindik orain, Errusia barrena ibilli izan diran yakintsu batzuk galde keta egin oi dabe; ta andik, yainkogekeria (ateismoa) gorantza barik, beerantza doala, ageri izan da.

Yakintsuok, bostpasei ziran; eta moltzoaren buru lez, «Le Figaro»ko idazle entzutetsu dan «Jean Bourdarias» zioian.

Errusia'tik itzuli diranean, ona zer adierazo daben: «Gu ara eldu giñanean, leenengo gauza, geuri bide-erakuslea izendatu euskuen. Obeto ibiltzeko zala, iñoen eurek.

«Bide-erakuslea geugaz, geuk bereala itzetik ortzera, «Ortodoxoen elizkizunetara yoan gura geunke», esan geuntson.

«Eta arek arriturik erantzun: «kontxe, onera etorri oi diran atzerritar beilariak, elizetatik sartu-atara besterik ez oi dabe egiten.

«Eta karrika ta plazetatik, eta zine ta museotatik, eta etxe bikain ta oroitarrietatik, eta oteletatik ta agiriko loretegietatik ta illerrietatik, eta abar, inguruka ta itzulika ibilten dira ibilli...

«Zuek barriz, leen-leena, elizak ta elizkizunak ikustea gura dozuela. Ezagun da, zuek zeuon barruan erlijioaren kezka daroazuela...

«Au entzutean, benetan gu poztu giñan, ori geuri esatea, geu goraltzea zala irudi izan yakun-ta.

«Zer ikusi dogun yakitera emoteko, iru gertakizun oneik dira gure ustez, yakingarrienak:

1. «Elizak yendez mukuru beterik oi dagoz domeketan ta yaietan. Ain beterik batzuetan, elizkizunera doazenak, barruan danak ezin artuz, askok eta askok kanpoan egon bear izaten dabela. Eta adin guztietako yendeak, gaiñera, yoaten dira.

«Bakarrik 15-30 urten bitartekoak, uts egiten dabe. Elizara yoan ezkero, euren ogibidea galtzeko arriskuan gelditzen diralako. Bizibidearen bildurrez ta erabez uts egiten dabe.

«Baiñan, bein 40 urteetara urbildu ezkero, gizonak ba doaz elizkizunetara; ta euren andreakaz ta umeakaz yoan gero.

* * *

2. «55 urte beteak dira, Errusia, ofizialki, Yainko bakoa dala ta laterri-egiturak, Yainkorik ezpalitz lez, zerturik dagozala.

«Ortik, kristauek asma eziñezko irribarreak ta isekak ta meatxuak, ezin konta ala, yasan bear izatea.

«55 urteetan, era orotariko bilkurak debekaturik egon izan dira, laterriarenak izan ezik. Eta kristau-ikaspidea irakasteko edo erlijioaren alde egiteko bilkurak ba'dira, orduan areago, gogorrago debekaturik oi dagoz.

«Beraz ez ei da gauza erraza, Errusia'n kristau izatea ta kristau bezela agertzea.

«Alan da guztiz, kristautasuna bizi-bizirik dago; eta kristauak ez dagoz lo-zorroan, ageri danez.

* * *

3. «Zelan gorde ete izan daben erlijioa...?»

«Sendietako santutegian gorde izan da erlijioa.

«Amak, sendiaren santutegian, seme-alaben biotzetan sartu ta landatu izan dabe Yainkoarekiko siñismena ta erlijioganako begirune ta ondonaia.

«Sendi barruan, sutondoan, amak irakatsi oi dautseez umetxoai kristau-ikaspidea ta «siñisten dot» otoitzaren siñiskaiak.

«Beste lekuetan irakasterik ez dago, debekaturik dagoelako. Baiñan, sutondoan, ama-umetxoak alkar-izketan dagozala, iñork be ezin daitekie, amai erlijioa irakasterik debekatu; ta umetxoai, buru-biotzetan, erlijio-gaiak sartzera ez utzi.

«Amai zor yake, beraz, lan eder-eder ori.

«Eta ondorio bezela, gaurko gazteetan, erlijioaren kezkea biziro zabaldu da, naizta laterria, 55 urteetan, Yainkorik ez dala irakasten ibilli ta erlijioari, indar guztiz, kalte egiten yardun».

Onaiño dira, Errusia zear, ibilli izan dan yakintsu moltzoaren esanak.

Kondairaren txirrintolean, ateismoaren, Yainkogekeriaren txanda dala gaur, noz edo noz baiño geiagotan irakurri ta entzun izan dot.

Baiñan txirrintola, gelditu barik, biraka dabil ta aurrera doa beste txanda bat artzera. Ta agian, laster beste egoera bat agertuko dausku.

Ta orduan, barriro, Yainkoarekiko siñismena ta erlijioarekiko zaletasuna ta atxikidura, bizi-bizirik sortuko dirala gizonen artean, ez dago zalantzarik neuretzako beintzat.

Dirala urte batzu, Stalin'en alaba, Errusia'tik igeska, Ipar-Ameriketara zan; ta politikazko gordelekua deritxon eskubidea eskatu eban.

Eta andik laster, liburua atera eban «Adiskideari ogei eskutitz» eritxona. Munduko elertietan zarata andia atera eban. Gurean zoritxarrez! ez zan argitara, gu ez bai gagoz ain aurreratuak gure berbetean...!

Besteak beste, erlijioari buruz auxe esaten eban liburuan: «bere aitaren utsegiterik andienetakoa, erlijioa zearo galdu ta ondatu daitekela uste izatea, izan zala.

«Argi ageri dala orain, ori ezin daitekena dala.

«Ta bera, barriro, erlijioari bere animan arrera ta begirune emotera doala...»

* * *

Euskaldun gazte adiskideok, erlijio gaietan denporarik emon gura ez dozuenok eta Yainkorik ez dala entzuteraiño be, bildur barik yoaten zarienok, kondairaren beste txanda, zaletasuna bizitu ta berrartu ta zabaldu daitezke; ta agian laster; ta bein da betiko, be, izan daiteke gero.

Eta orduan zuek be, siñismenez bizkorturik, maite izango bide dozuela, deritxat, gure aurrekoek leenago eta nik orain lez, esatea ta berresatea: «EUSKALDUN, FEDEDUN».

YURRE'TAR YULEN, A. K.

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 38
21-15-07 urrt.
BILBAO-5

Labur, Bizi Ta Zorrotz

—Neurri gogorrak artuak ditu Bolivia'ko lendakariak, Hugo Banzer koronelak.
Orain amalau illabete indarrez artu zuan agintaritza, eta dirudienez beldur ba bide bertatik gal ote lezakeen... Ez batere arritu, 1825'gn urtean askatasuna eskuratu ezkero, erri ortan eun eta berrogeita mar indarrezko aldaketak izan bai'dute leku.

—Kuba ta Ipar-Amerika'ren arteko artuemanak gozatuko ote dira? Elkar izketan jarri bear ortarako, eta sobietarren aldetik iñolazko eragozpenik ez. Aren ekonomiaren eusle izaten aspertu-edo egin bai'dira. Bitartean, Kuba'ko A. K.'ren bulegoak gobernua eraberritu ta sendotzea erabaki du, ortarako zazpi ministru-orde izendatuaz. Danak militarrak. Kastro ere mutil ona bai, baiña...

—Alemania'n kristau-demokratek porrot. Liberal eta sozial-demokratak, berriz, areago sendotu dute beren egoera lege-biltzarrean. Brandt eta Scheel jaunen norbere garaipen bikaiña. Buruzagi auen atzerri-politika irekiari erabateko onespena eman dio oraingoan erriak.

—Inglaterra'n, Beko Lege-Biltzarrak ez du onartu gobernuak aurkeztutako azken lege-gaia. Bretaiña Aundia'n sar nai luketen atzerritarreri buruzkoa, ain zuzen. Commonwealth zuriko erritarrekiko, europatarreri leentasuna eskeintzera zetorkeen lege ori. Wilson'ek bereala agintaritza utzi ta etxera joateko eskatu dio Heath'eri. Onek, ordea, patxadarik ederrenez, lege-gai berri bat eratuko duala erantzun. Bat ez bestea ez dira berearekin atera. «Enpate» esan genezake beraz. Garaillerik izatekoz, demokrazia. Bejondeiola!

—Beljika'n, berriz, gobernuak agintaritza uztea erabaki du. Kristau eta sozialistaz osatua zegoen. Gaiñontzeko taldeeri dagokie orain erriaren gidaritza leporatzea. Nolanai ere, krisis edo zalantzarik, ez eta iskanbillarik. Europa'ko laterri auegatik bai esan ditekeela: «are different».

—Noiznai, nunai eta nolanai egurtzen ditu arabitarrak Israel txikiak. Izan ere, ao zabal bezain txepel portatzen ari dira mairuak. Gudarako ez bakerako ez bai'daude. Ez al dute benetan negargura ematen?

—Kissinger eta Le Duc Tho'k oraingoan ere kale! Kabaretak ikustera bakarrik Paris' era joaten al diran pentsatzen asi bear ote dugu?

DIRU-ARAZOAK

—Espaiñia'k saldu baiño erosi geiego egiten dio Europa'ri. Urte onen leen amar illabetetako zenbakieri dagokienez, begira: COMECON osatzen duten laterrietara egindako salmentak 6.353 milloi pezetara iritxi diran bitartean, andik egindako erosketak 8.413 milloi. CEE osatzen duten laterriekiko, salmentak 68.683 milloi pezeta, eta erosketak 120.236 milloi. Olaxe kontuak...

—Gaur egun Espaiñia'k duen burnieroslerik nagusiena URSS da. Bigarren Alemania Federal eta irugarren Brasil.

—Bizkai'ko Labe-Aundi'etako akzionistak ez dabiltza makal oraiñaldian. Eta nere kide batek, ain zuzen, goraka asi ta bereala saldu ez zituen ba'da? Orain tripak jaten edo dakusagu. Lasai motell, besterakoa etortzen danean naiko parre egin el izango dek-eta!

—Dirudienez, Espaiñia'k EFTA elkartearekin egin dezakeen ituna, elkarte onek CEE'rekin egin dezakenaren aurrez-ikuspenez egingo litzake. Argi ibilli bearra dadukate orain CEE'ren altzoan ez diran laterriek.

—FAO'ko zuzendariak Erroma'n esan duanez, ludiko erri atzeratuetako janarigintza ez da ia bat ere geitu azken bi urteotan. Eta jendetzak ein aundiagoz ugaltzean, gero eta egoera larriagora iristen ari omen dira. Lagun dezaieketenek «Apolo», «Lunik» eta antzeko jostaillugintzan gastatzen duten bitartean...

—Euskalerrian itsasontziak egiten dira. Ez Japon'en ainbat ala ere... Ez da giro japondar oriekin. Gaur egunean egiten diran itsasontzi guzien —toneladaz jo ezkero— bitatik-bat beraien kaietatik ateratzen da. CEE beldur da, gaiñerako laterrieri azokak irentsiaz jarrai ez ote lezaketen eguzkialdekoek...

GIZARTEKO GORABERAK

—CEE osatzen duten laterrietan amar milloi atzerritar ari dira lanean. Paris'eko azken batzar nagusian erabaki zutenez, orietako bakoitzari, norbere erritasuna galtzeke, ari dan lekuko edonoren giza-eskubideak ezagutuko zaizkio. Kapitalisten Europa ori ea ain txarra ez dan...

—Aurtengo urtean, amar illabeteren buruan, langille-ugazabekiko 1621 itunben izenpetuak izan omen dira Espaiñia'n.

GIZON ETA EMAKUMEZKOAK

—«Neewsweek» aldizkariak dioenez, Leonid Breznef nolabait dabil osasunez. Biotza, gibela... aje askotxo aipatzen ditu. Eta dana gezurra ba'litz? Oroi gaitezen zenbait gisa onelako «porru» sartu oi dizkiguten Mao'ren osasun ezaz!

—ONU'k lendakari berria du. Guinea'ren ordezkaria. Emakumezkoa, beltza ta sei umeren ama: Jeanne Martin Cisse anderea. Zorionik beroenak, eta gizaseme zuriek baiño eragikorrago egertuko al zera beiñepein!

—Tejas'darrek aukeratu duten ordezkaria izango da USA'ren egoaldean «senadore» maillara iritxitako lenengo emakukezko beltza. Barbara Jordan, houstondarra berau. 36 urte. Ba-duke etorkizunik... Ipar-amerika'ko beltzak txarrenean izan ote ziran? Ai alako bat!

KULTURA BIDETIK

—Unibersidadera goizo eldu dira eztabaidak aurtengo ikastaroan ere. Dirudienez, ekonomikasetakoak dabiltza bigurrien...

—ONU'ren atal bat da UNESCO. Oraindañoan erakunde onek artzen zituen erabakietan bere nortasunik eza nabaitzen ba'zan ere, gaur egunean bertan entzuten diran ageriko iritziek kulturaren aldeko erakunde onen politizatze mailla bat nabarmentzen omen dute.

OSASUNA TA EDERGARRIAK

—Sendagintzak sekulako aurrerapen galga atzeman du. Bestalde, erri atzeratuetan sendagille gutxi dago. Auetara nola egokitu beraz? Sendakaiz ongi ornitutako sendategitxoak baserrietan eraikiaz alegia. Gaixozaien ardurapean jarri ta aski omen lirake gaixotasun arruntak sendatzeko. Berebil- sendategi ta egiazko sendagilleen bitartez lagun lekieke gaitz zaillagoak tratatzen. Gure erriak ere mailla ortan sartzen ote dira? Ba-dugu «anbulatorio»'txoren baten premirik gure erritan, bai noski.

—Adi emakumezkuok! Paris'etik datozen orrazkerak askotarikoak izan arren, geienbat nagusituko dana, ille motza ta «permanentez» kizkurtua. Margo gorrizka ta dizdiratsua. Txit iraunkorra. Senarrok ere ba-dakizue, nai izan zekero, asteroko ille-orrazleari ikustaldiak amaitu ziran zure emaztearentzat... Eta gizonezkoen buruentzat zer nolako «moda» ote dator? Ganora bear du orretaz itzegiteko... Neronek ez dudana, egia esan!

ERRIETAKO KONTUAK

—Donosti'ko Alkate jaunak agindu zorrotz xamar bat eman die San Roke auzotegiko bizilagun zenbaitzueri. Baratz egin dituzten beren etxe inguruak berriro loretegi biurtzeko, ortarako egiñak ziralarik. Sei eguneko epea dute. Batzuek, ordea, Udaletxe beraren baimena —«precario»an— omen zuten baratz lanetarako erabiltzeko. Auek gauza xelebreak gertatzen dira gure luditxo ontan!

—Berreun kiloko zerrama mardul batek 21 zerrikume egiñak ditu Barakaldo'n. «Ori da aurgintza ta gaiñerakoak umekeriak dira», zioen berri emailleak. Guk ez diogu arrazoirik kenduko; urdai-azpikoa guri gustatzen zaigunarekin, gaiñera!

—Bajurako itsasontziak ez dira atera egunotan arrantzura. «Chupa-chups» baten truk txitxarroak salduko ote dizkiagu ba'da?..., esaten omen dute. Izan ere, ez al dago gorostimakillarik erosle zeken oriek astintzeko?

PAGO TA ARITZ

Erri - Erri - Erri - Erri

Zeanuri

Burua nekatu, eta begiak mindu, baiña AGUR'era barriak, bialtzen naiz alegindu. Erri onetan ba-doguz AGUR'ean idazle jator bi, Euren idaz-lanak etorten dira ugari, egiten dautsegu, ona, abegi, euretan irakurten doguz makina bat egi baita izaten jakuz onuragarri. Eskerrak eta zorionak, bai, zeuori.

Deun guztien eguna. Ainbat erritar ikusi gendun, emendik joanak, euren senditarren oroipenez egun ori igaroten etorriak. Andra Maria'ren eleizan meza nagusian, eleiza beterik aurkitzen zan. Baita, eleiz ori, erreteillau barria dogu, bertara dagon bidea be konpondu dabe, eta eleiz inguruko landan berebillentzako tokia egokiago jartzeko asmoak bere ba-dabez.

Baserri bat erre da. Zulua auzunean Julio Ortuzar ta bere sendiaren bizilekua suak erre egin dautse, zazpi seme-alaba daukez, oraindiño danak gazteak. Zetan esanik bere ez, gure laguntzea izango dabela ez bearrean.

Baten batzuek ba-dagoz emengo barriak AGUR'era bilatzeko gertu. Egin dagiezela bildur barik gertu, zuzendaria dogu gizon prestu, gure okerrak egiten ditu arteztu. Baita egingo gera poztu, ta irakurleak ugaritu, ta Zeanuri obeto ezagutu.

Barriketa edo nuntze barri zalea naiz, baiña gaur ez naiz geiagogaz gogoratutzen eta urrunagoan izan bearko dau. Baiña antziñeko senarrak bere emazteagaitik abestuten eban abestia datorkit gogora.

Barriketea ba'litz gorua,
txokolatea ardatza;
nire emazteak egingo leuke
kakoa bete mataza.

GORBEITARRA

Galdakano

NORA GOAZ?

1972-Azilla-18'an, 62 zenbakian, Ozkin jaunaren lana irakurri neban. Ta, bertan diño, Euskerea ez dala galduko bere ustez, ezkondu, semeak ekarri, ugariru artaldea ta euskeraz egiten ba'da.

Baiña euskeraz nolango edo zelango maillan egin, ta bakarrik batzuekin? Ez ete da ames apur bat zintzoen gogoan? Ona izango litzake euskaldun bakoitzak bere plantemaentua egitea: Zer gura du; Nora goaz; Zergaitik goaz; Zegan finkatzen gera; Zergaitik eta norgaitik edo nortzukaitik egiten doguz gauzak, ta beste olakoak.

Seme bat eukitzeagaz ez da asko egiten, ta praille bategaz berbaz eusko mintzaeran egiten joan, ta itz bategaitik ixiltzea be ez da gauza asko egitea euskeraren alde. Nire adizkide batek ere uste du ezkondu, seme asko ekarri ta euskeraz irakasteagaz neiko dala. Baiña bera mutil zaar dago.

Ez dagoz ba, gure errian erdeldunak, lantegiak, ayuntamentuak eta ofizialki bear direzan gauzak, denak erderaz? Ordu onetan zer egin bear da ba? Nik ez dakit zein dan biderik onena, baiña zeozer egin bear da. Ea niri jazoak zerbait argitzen gaitun: Orain lau urte Belgika'n egon nintzan, Flamenkoen lurraldean, ta bost izkuntza ekiazan amazortzi urteko neskatilla bat ezagutu neban. Aren gurasoak euskaldunak dira, ta berak ere euskeraz ederto daki, ta oporraldiak be Euskalerrian egiten dituz. Baiña jaiotzaz eta bizitzaz, angoa da bera.

Itandu neuntson, ba, bere kontzientzia non egoan, ta obeto ikusteko, esan nion Flamenko ta Euskoen artean burrukarik edo gerrarik sortuko ba'liteke nogaz ta noren kontra yoango litzaken; baita bakez be, nogaz yoango liteken. Ta, zintzo-zintzo ta gogoz, auxe erantzun eustan: «Euskaldunen kontra», berak bere nortasuna, norberetasuna ta kontzientzia angoak zituelako, bera angoa egin zalako.

Guk be emen ori lortu bear dogu guztiekaz. Zelan egin bear dan jakiteko, alde batzuek ikusten dira «Idioma y Poder Social» Rafael Li Ninyoles jaunaren liburuan. Norbaitek zerbait gaiago ba'daki, esan begi, yakintzaz bearrezkoa da, ta euskerea galdu ez daiten.

JOSE MARIANO BERRENETXEA

Arratia

Tataparratan, tarrapatatan bizi-bizi ta txukunik tanbolin-tuntuna jo, ta txistularieri lagunduz makiñatxo bat gazte dantzazaleri amaika biderrez bizitasun bizkorra eskeinduriko Altuna'tar Endika —Altxirri—, Artaun'go aitajauna, Dima'ko gizonik zaarrena, joan yaku, gau ta egun zabal idegirik, guztiontzat diran bideetan gora. G. B., Altuna zanari, ta atsekabe-agurra sendiari.

* * *

Angoitia'tar Bitor, barrien barriz aitita izan dala entzun izan dogu, ta poztu gara. Lenengo aldiz izateak zankoak astun-nagitu ba'eutsazan, bigarrenez izateak bizkarra makurtu-arazoko dautso ziur asko, baiña perretxiko batzaille amorratua dan ezkero, obeto ta errezago egiñez eroango dau makurtze lana. Zorion, adizkide. Ez kokildu!

* * *

Joan dan Azillaren 19'gnean errizale euskeraren oiñarri sindo ta giltzarri lorringeak diran «Euskaltzaindi» koekin Tolosa'n izan giñan Euskalerri'ko txoko guztietatik. Euskerantoaren ezten musturtsuak zaurituz illobira eroan gura dauskuen izkuntz kutuna, loikeri zikiñetik atera, indarbarritu ta gaizkatzeari buruzko arazo ta erabakietzaz.

Eskuan dodan idazkortz au baiño zorrotzbizkorragoren bat izando dalakoan, itaun-galdera au egiteak zirikatu nau: Antxiñako antxinen baten toki ta leku alkar badiñak izan ete ziran Tolosa'n eta Arratia'n? Emen, Yurre ta Yurrebaso; Urkia, Urkitze ta Urkizu doguz; an, Tolosa'n, Yurreamendi ta Urkizu ikusi nituan.

* * *

Egunaren argitan, bide zuzenez eta gogo onez, Erriaren aldezko lanean diarduenentzat jakingarria. Bigarren aldizko labekadako «Sasi Batasuna» eskuan genduala etxeratu giñan. Satorren azpikeriak azaleratuz daragio berebiziko idaztitxo txikiaundiak. Len agertua izan zana, labe epeletik urtetako astirik barik agortua izan ba'zan, oraingo onetan bere ez dau salokietan autsak jango.

Aguro ibilli, ba, azpikeria, maltzurkeria ta loizikiñak nondik norakoak diran jakin-egarriz bizi zaren ori.

LANDAJUELA'TAR A.

Araiz

ULERTU NAI TA... EZIN!

Adiskide jator bat ba-degu, orain sei-zortzi urte dala asita, Donostiko'ko eguneroko batean, berak izenordez izenpeturik, astero-astero «BASERRITIK» nekazari-gaietaz, nekazariok ongi ta errez ulertzeko eraz, euskera ixurberan idazten zigula.

Orain «BASO ETXE'TIK» ari da, ta auxe lana!... gu nekazariok, lengo nekazariok, betikoak, Euskalerri'koak... lanak ditugu, izenorde berberaz, irentsizaillak zuzendu nai dizkigun berriak irakurtzeko ta beraietan dionaz jabetzeko.

Orain sei-zortzi urte, euskel-lanokin batean, ondoren, erderazko itzulketa etortzen zan. Euskaldun etzirenentzat onuragarri, agidanean.

Orain ere bai. Gazteleraz ba-dakar bigarren sailla; naiz orain... erderatik euskerara (?) itzulia dala jokoa, errez susmoa artzen zaiola antzeman.

«Gure sektoreari... factore merkantilari... produzitzen ditugun productoak... prezioen kontenzioaz, deklarazioa... sektorearentzat amenaza, publikoari prezio maximoa... esperientzi tristea... situazioa diferentea... sistema ekonomiko hau... prezio politikoak... sektoreareko produktoen importatzeak anormalitatean... txokeko importazio... aranzelen... inseguritate eta desesperanza produktoarengan...» ta beste onelako argi bide (!!!) asko, neke zaizkigu egosten gu nekazariori.

Len ondo ta errez jasotzen genduna, euskera txukunean zegolako... orain erdel-itzulpenari jo bear (eta ortarako, izkuntz ontan gero ta trebeago bear) ezer garbi ulertu nai ezkero beintzat.

Labur. Goiko izen-buruan dioguna: «Ulertu nai ta... ezin!»

Gu beintzat, nekazariok, galeran, jokabide onekin.

IRAZTE

Gabon Bidez

Urte baten azkenerantza doazen egun itxaropentsuetan bideratuak arkitzen gara, gizonak bein bere, aztu ezin dabezan itxaropenezko egun, gaboneratze gogoangarrietan. Negaratu gara ta ots, dagi bai, zirrikillu guztietatik; ots, itxas asarratuetan, olatu bitsdun ta bildurgarrien artean ontziak zibuzauka goiberatuz; ots, ots dagi ibar ta aranetan, ta batez be, mendi bizkar, erpiñetako edur zuriaren gordintasun samiña edatuz... Udazkeneko epeltasun gozoak aldendu ziran ta, beste urtearo barri baten ateetan ate-ioka ari gara, beste urte barri baten atarian, betiko amets, zorionegarriz...

Gabon-aurrez asten da (egun batzuk lenago) urtearo zoragarri au, gizonari alako, bioztasun, arnasa barri baten bizi-gura, indar berezi, kementsua dakartson itxaropenezko sendabide argigarria... Alaitasuna, bizitzeko gogoa, itxaropena... Zer dala-ta? Nundik, zelan sortzen da goi-argiaren txinpart ori? Egunokaz mundu guztia alaitzen da; kistar ta kistar ez diranak... Noelak, Iaiotzak, Olentzeroak... etxeetan, kaleetan, salokietan ta abar, zorionak opalduz. Egal guztiak argizintzillikarioz dotore, txukun, ederto apainduak, Iainko Semearen gomuta ta Izenean.

Poz eta ontasun itxuraz azaltzen da mundua abesti alai, maitagarriakaz, gizarte alkartuago baten amespe, bideratze pozgarrian... Ai, egiten diran eskeintza ta maiteagerketak egiazkoak izango ba'litzakez! Egiazkoak, egunari buruz, laterrietako agintariak, egingo dabezan itzaldi beroak! Alkar maitatzen, onartzen ikasiko ba'genduke, batabesteari lagunduz! Zorionekuak orduan!

Bitartean, emen ariko gara, bata-bestea irainduz, bata-bestea zanpatuz... Ez ete gara oroituko minbera, miseri gorrian, gexo, ta espetxeetan egia ereiten ta zabaltzen alegindu ziralako zigorpetuak arkitzen diranakaz? Bai, Gabon egunak zerbait oldoztu, pentsaraziko dausku bai!

Artzai pobre batzuek
zeuden gau erdian,
beren ardiak zaitzen,
txit ernai mendian;
an jakin dute nola,
David'en errian,
Mesias arkitzen dan
estalpe batean.

Albiste pozgarri au zabaldu ta oiñarritu zanetik gaurko egunetara, munduak aldaketa aundiak izan ta ikusi dauz baiña, mundua, gizona, len bezin itsu ta griñatsua dakusgu gizaldien ioan-etorri ta bide nekegarriz: gudak, erailketak, ta aundikeria, gorrotoa, ikusi-eziña, bekaizkeria, menderik-mende... Gu Salbatzera etorri Zanagandik igesi... Igesiarren, ordea, Egun Aundi onek beti, zerbait alkarganatu, biozberatzen gaitu... Zergaitik ete da ori? Zer dauka egun onek beste egunek ez dabenik?

Zer batu-arazten dauz sendikoak, zerk neba-arrebak gurasoakaz mai baten inguruan? Itxasoan, urrutiko lurralde, etxetik at bizi diranak be, Gabon eguna, kutunkiro, laztantsu, gogoan izango dabe. Gogoan erria, etxea, anaiak, aita, ama, gogoan norberaren maiteak... Itxasotik, urrutitik, etorri al izan ezkero... Zer poza etxekoentzat! Zer poza beretzat! Egunokaz or ikusiko doguz etxekoandre arduratsuak, iatekoak etxeratzen... egun aundi ori aundikiro ospatzeko asmo ederrez.

Atsegiña benetan Gabon eguna! Iainko Semearen Eguna! Abestiak, otoitzak, alaitasuna inguruetan... Emen irarri ta gogoratu nai dot gure M. Lekuona'ren olerki eztia:

Txitxi ta papa goxo
mutil txiki batentzat,
Belen'en bart jaio
danarentzat.
Amatxok eman dit
neretzat,
bañan nik gorde det
Zuretzat...
Aitatxok eman dit
neretzat,
bañan nik gorde det
Zuretzat.
Txitxi ta papa goxo
mutil txiki batentzat,
Belen'en bart jaio
danarentzat.
Ta, nola ez gorde
Zuretzat,
bart jaio Ba'zera
guretzat?

MUNIATEGI'TAR SABIN

Urak Diraustaz

Kantauri itxasoa ederra zara. Bein joan naz zure magalera, zugaz bat eginda eguna igarotera. Nire antxiñako gogoa zan, zugaz eta zugan alkarraldi bat egitea. Aldia eldu zanean, ni joan bear nintzan zure egon lekura. Zu, beti, bezela, eder eta sendo zengozan. Ez zindudazan aurkitu apartsu ta bildurgarri. Izadi amaren zati bustia zara Euskalerri'ko Kantauri itxasoa.

Begira-begira ta arnaska nengoan, iñundik iñora-zentzunak eta gogoa asetu eziñik. Uretara begiratu ezkero, urdin-urdin, indartsu, eder eta jakituriz beterik ikusten zindudazan. Zure zabaletik Euskalerri'ra begiratu ezkero, lur ertzak maitekor ikusten nituan. Ta ostera, mendi ta lau artean bizi direnak gogoraturik, zenbat kezka eta min etorkidazan nire izate mintsu ta urratura!

Gure erriaren arazo aundiak, oso bupera diran buruko-miñak, geure artekoak sortuak dira batzuk, oraingoan, Euskalerrian. Ta uretatik legorrera begira nengola, ori ez da bidea, iñostan Kantauri itxasoak: Gizona jaube barik, indar ta maltzurkeri azpian ezin bizi daiteke.

Giza seme ta alabak ba-dabiltzaz Euskalerri ontan, iñoz ez bezela, izadiak eta gizadiak, eurengandik at, beste jauberik ez dabela siñistu eragin naiean. Orretarako, lagun bezela jarri ditue ule, bizar eta jantzi milindri politak. Gisajoak ez dira ausartak baiño. Len, dirudunak jaramonik ez ebela egiten... oraingo askok eta gaizkatzaille barriak arpegira ez dabe begiratu be egiten. Besteak baiño aundiago egiten direlako ete da...? Oso lanpetuak dabiltzezelako be izan daiteke.

Dana dala, gaur, esaten dan legez, bakoitzak dauka bere nor-bidea. Egia danez, jokabide batzuk aizeak daroaz ta beste batzuk betirako geratuko dira itxasoko arkaitzari ezarrita. Batzuk zintzarri zarata bezela aurreko mendi ostean amaituko dira ta beste batzuk, betik otska, jarraituko dabe gizadiari argi egin ta zentzuna emoten.

Ni itxas izadiagaz arrituta nago beronen ur sakon artean. Ona eldu ta bereala, asi jat mintza ta mintza, gauza asko esaten. Egi aundi ta orokorrak diraustaz. Aundi, sakon ta zabala dakuts itxasoa. Ta nire pentsabidea, berez, dakusela dirudi. Nire aunditasuna ez da nik sortua diraust itxasoak. Ni ba-naz, baiña aunditasun au ni baiño amai barik aundiago danak emon daust.

Izadiko zerik argitsuena gizona izanik, iñungo gizonek ni ez nau sortu. Nire indarrak aundiak dira, arkaitzak irunsteko aiñakoak. Nire ixil guztia gizonek ez dabe ezagutzen, ni sortu ninduan Jaun bakarrak, bai ostera. Egille almentsua daukat, oiñaztarria baiño indartsuagoa. Ni ba-nabil, batzuetan bare, ta bestetzuetan asarre. Bare nagonean, Jainkoarena naz, ta asarre nazanean be iñorena naz. Egilleak narabil, ta au arrigarria! beti, aidean ta lurrari ezarrita.

Iñundik iñora ezin dot esan; neurea naz. Daukatan guztia, artuta daukateta. Gizonok, zuena be ez naz. Zuek, gizajook janari billa zatoze niregana ta jolasean be bai. Baiña kontuz! Arrokeririk ez erabilli. Bestelan ba-dakizue, emen zer dagon. Erronkariak, sarri, jausi dira nire azpira ta arrain baltzak iruntsi zituen. Nire indarragaz ez dago txantxetarik. Ta ni ez naz nirea; Egille indartsuarena baiño.

Itxaso, ur urdin, zure jakituriz izutuca naukazu. Egia diñozu: Gizonek ez nabe ezagutzen osoan. Nire barruaren barri gizadiak ez daki oraindik. Milliñoiak eta milliñoiak izaki bizi dira nire magalpean. Nork emonda? Ai! gizonek ez beintzat. Ni sortu ninduan jakituriak ertzik ez dauka. Jakituri legez beterik nago, ta ona datorrenak, emen, nire legez ibilli bear dau. Jakituriz bete ninduana, nere gain dabil egonero, uriolezko naspilpketa sortu ez dedin lurraren gain.

Euskal gizadia Jainkoa ukatzera ba'doa, nik dirautsot: Jainkoaren indarra ta jakituria itxaso barru ta azalean, biziki dabil bearrean.

Gizonok, arrokeria ez doa iñora; egiak garoaz gure EGILLEARENGANA.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Ikastola-Auzia ta... Solzhenitsyn

Gure ikastola-auzia zertzaz dan gure irakurle gustiak dakitela, nik uste. AGUR'en eta GOIZ-ARGI'n eta ZERUKO ARGIA'n askotxu idatzi da gai orretzaz. Arrasate'n jazo dana auzi orren argira-etortze bat baiño ez da.

Bear ba'da ez dabe ainbestek jakingo Solzhenitsyn ori nor dan. Ez da euskotarra, errusitarra da; ez da orokar edo katolikoa, Errusia'ko Eleiz bereiztukoa da. Beraz kistarra da eta Errusia'ko Gaztediaren zuzendarien tarteko. Bera da aurten NOBEL-SARIA elerti-gayetan lortu dauna. Errusitarra, gastea, elerti-gayetan gorenetakoa, egi ta zuzentasun-zalea; beraz lotsa apur bat beintzat zor yakona.

Zer ikusi ete-dauka baiña, gizon orrek gure ikastolakaz? Gure ikastolakaz ez dakit; baiña gure ikastoletako AUZIAZ, bai, Ikusi.

A) Igazko Irallak 8 ta 9 egun, Errusiapean dagon Lituania'n Antanas Seskevicius deritxon Aba Josulaguna lan gogorretara zigortua izan zan I ta II maillako umeai, GURASOEN NAYEZ, Kistar-bidea irakasten eutsielako.

B) Lituania bertantxe Azillak 11 eta 12 egun zituala beste jaupari edo apaiz bi, Prienai'ko Zdebskis eta Erasiainiai'ko Bubnis Abeak espetxeratuak izan ziran, Seskevicius Abeak lez, umeai kistar-bidea GURASOEN NAYEZ baiña Errusia'ko Legeen aurka irakasten eutsielako.

D) Ori dala-ta edo *(edo orregaz batera gitxi gorabera) Errusia'ko Eleizearen buru zan Pimen Goi-Gotzain jaunak idazki luze bat zabaldu eban igazko Gabonetan Errusia'tik at bizi ziran ziñisdun kistarrai irakatsiz, GURASOEN BEARKUNA zala euren seme-alabai ELEIZEA maitatzeko bideak erakustea.*

E) Orduan Solzhenitsyn'ek bere burua agertu eban eta idazki luze ta gogor bat idatzi eutsan Pimen Goi-Gotzañari. Zertarako? Ori etzala GURASOEN ESKUBIDEA esateko? Ez orixe! Pimen'i galdetuz ea zergatik ori ez eban Errusia-barrukoai irakasten. «Zergaitik *(diñotso Pimen'i Solzhenitsyn'ek)* zergaitik Errusia'tik at dagozenai bakarrik esaten dautsezu ori,... Zer GU'tzaz? Bereiztuak izan bearko-ete? Ez ete-gagoz GU beartuta GEURE umeai Eleizearen maitasuna irakasteko? Bai, bein! Josukisto'k agindu eban eungarren ardia *(ardi galdua)* billatzera joateko; baiña ori, larogeta emeretzi ardiak arditokian gordeta dagozanean, da. Zer egin larogeta emeretzi ardiok at dabiltzanean? Ez ete-dogu euren ardurarik artu bearko?... Gu lapurretan gabiltz, GEURE umeai eurak Jaungoikoa gurtuteko dauken eskubidea emoten ez dautsegunean, geroago, andiagoak diranean, eskuratu ezingo daben eskubidea...»

Orrela idazten dau gizonki ta ausartiki Solzhenitsyn errusitar entzute aundikoak. Uzkurtza edo erlijioa Jaungoiko ta gizon guztien arteko lokarria da; beraz Jaungoiko ta umeen arteko be bai. Lokarri ori eskubide bat da eta eskubide ori umeak berez zaindu ezin dabenean, izatez euren ordezko diran gurasoak zaindu bear dabe eta euron ordezko diran jaupari edo apaiz ta irakasleak. Umea beraxe ta Jaungoikoa lenen-lenengo, gero gurasoak, gero jaupari ta irakasleak. Ez esan, ba, Erdi Aroan bizi gerala ori esaten dogunok. Solzhenitsyn ez da erdi arokoa. Gaurkoa da eta Errusia'koa. Umeen eskubideak, Jaungoikoa' ganako eskubideak zaintzeko bere Eleizaren buruari be arpegiz arpegi ta gogor itz egiten dautsona.

URRUTIA'TAR GOTZON M. B. S.

Erlijio Azkatasuna

Katolikuak, orain arte, itsu egon gara gure anai kristaueri begira. Egia, geure aldetik bakarrik egoala uste izan dogu beti. Gaur, eta batez be, Batikano II'a egin zanetik, gauzak beste era batera ikusten asi gara. Erlijio-azkatasunak on asko ta aundiak ekarriko dituala-ta nago. Erlijio-azkatasuna ez da epeltasuna, ez da oztasuna, ez da Jainkogaz erantzunbearrik ez izatea, ezta gazurra ta egia neurri baten jartzea be.

Erlijio-azkatasuna erlijioa azke betetzeko gizonak dauan eskubidea da, bere kontzientziak diñotsana ondo egiñaz. Beraz, siñismena ez daukenak be eroan leikez Jaungoikoagana, katoliku ez diranei euren kontzientziak diñotsena jarraitu dagiela eskatuaz.

Erlijio-azkatasunak izan ditun onurak ekarriko lituzke barriz gure Euskalerrira be. Izketaldiak izaten, ar-emonak eukiten ikasi. Izketaldiak pentzaerak sakontzeko izango litzakez. Besteak egi apur bat euki leikeela esan nai dau onek, naizta guk uste izan ez.

Gauzak ulertzen ikasi; gure itsukeria itxi, biotz-kemena galdu gabe. Gure katolikutasuna agertu; oiñarri sendoa emon berari; adimenagaz argitu ta biotzean bero-bero esan. Idazteuna-Biblia obeto ikasi; erlijioa ondo ta sakonkiro erabilli. Zelan maite izan dogu orain arte Jainkoaren itza?

Katolikutasuna bizi; ez izan katoliku orixe irakatsi dauskuelako; ez nire gurasoak eta aurrekoak izan ziralako bakarrik. Bakoitza obeto gertuko litzake siñismena zaintzeko ta geiago maite izango leuke Jainkoaren doai eder au. Apaiza be obeto gertuko litzake eztabaidan egiteko etsaiekin; geiago ikasi bearko leuke.

Katolikuak gitxitu egingo litzakez paperean, baiña askoz oba; orduan jakingo genduke zeintzuk diran egiazko katolikuak. Epeltasuna itxiko genduke. Batikano II'ak esnatu-itxartu egin ditu protestanteak, erlijio-azkatasunak be esnatu egingo leukez ainbeste katoliku epel. Erlijio-batukeria (politikan be ezin bardin pentsatu danak) eziña da. Gizon bakoitzak bere asmoak, bere ideak, bere pentsaerak ditu ta ezin zapaldu leitekez indarrez edo beste edozein bidez. Erlijioazkatasuna onurakor litzake, ba, gure erriarentzat be; azkatasuna, besteak nastatu ta zapaltzeko bide, iñork erabilli ez dagian ernai ba'gara beintzat danok!

GOIRIA

AGVR

III URTEA
67 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - LOTAZILLA - 23

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

TXIROAK ESTU

Urtero lez, gabon-jaiak ba datorkuz. Erri-oituraz beterik eta sendiko alkartasunaren agiri bat lez. Baiña jai pozgarri oneik, txiroen estualdiak eta nekeak aspaldiko urteetan gogoratzen dauskuez: gosez bizi diranak, zapalduta dagozanak, etxetik urrin bizi diranak, gaizoak, txiroak, espetxeratuak, erbesteratuak...

Zergaitik gomutapen oneik?

Antzeko egoeran Belen'go estalpea be agertzen dalako izan bear.

Gaur gizonak aurrelarien billa dabiltz, eta aurrelaria, bere bizitza zuzen eta neketsuaz gure mundua obetuteko eredu bat da. Batzuk Kennedy artuko dautzue, beste batzuk Che Guevara... Baiña Jesus'en bizitzea aztertzen dauanak, an aurkituko ditu aurrelari baten agerpenik ederrenak, ez bakarrik bere aldirako, baita gure denpora aldrebes onetarako be.

Laterriak eta gizonak ondasun billa amorratuta ikusten doguz, domu-zalekeri iguingarri baten menpean, eta gure Aurrelaria estalpe zar baten, guraso ezeukiekandik jaiota ikusiko dogu.

Txiroak nunai baztertuta agertzen jakuz, laguntasun billa, euren artean alkartu bearreko. Belen'go estalpean dagon sendia, Aurrelariarena, bere senideen aldetik baztertuta, eta artzaiñakaz, gabaz euren artaldea zaintzeko arduraz bizi bear dabenakaz bat eginda agertzen jaku.

Zelako ardurea artzen dan, eta artu bear dan, gaurko munduan umeai begira! Zenbat ume errugabe gosez, baztertuta, eskola barik!... Jai oneitan Ume beartsu lez agertzen jaku gure Aurrelaria.

Zenbat sendi, etxe barik, munduan bazterrik bazter! Kondairaren barruan orreitariko bat dogu gure Aurrelaria. Etxetik kanpo, mendi-zulo baten, txiroen artean txiro.

Zenbat laterritan aberriak zapalduak agertzen jakuzan, zenbat agintari gogor! Erroma'ko Kaiserra be gure Aurrelariarentzat ondo gogorra izan zan: bere naikeri bategaitik ainbeste naigabe arrerazoten!...

* * *

Gu, zalantzarik gabe, geienok, sendi bero baten alkartuko gara jai oneik ospatzeko. Ez gara izango gure Aurrelariaren antzekoak. Baiña, gitxienez, egun orretan geure eretxiak aztertu dagiguzan eta txiroen eta zapalduen alde zer egiten dogun eta zer egin al dogun aztertu dagigun.

Ez da errez izango ludiko samintasunak gozotzea, baiña ardura ori izan ezik ez goaz munduak eskatzen dauskun bidetik; beneteko anaitasuna gure barrura ez da eldu oindiño.

Gabon zoriontsuak guztioi opa dautzueguz eta, jai oneik igaro ondoren, gure gizarte zaletasuna, erri-zaletasuna, gizadia obetuteko guraria... biziagoak eta bizkorragoak izan daitezala.

AGVR

TA, SOIÑEZ JANTZI ZAN



Zinez dut sinisten,
begiez ikousten
banu bezela,
Mari'ren Semia
Betlenen sortia
Jainkoa dela.

Intxauspe.

* * *

Gaberdia dan arren,
eguzkia;
Birjin dan arren, Ama
da Maria...
Izadi guztia asi
da zoratzen,
Jesu'ren etorrera
gogoratzen.

Lekuona.

* * *

Jaunaren geznariak
poz-geznea ekarri dausku:
geure larre onetan
Jaun-Semia jaio bai-yaku.

Sabin.

* * *

Poztu, ene txikiok,
gaur, arratsean,
aurtxorik ederrena
yaiotzekoa baita
lurrean.

«Lizardi».

* * *

Ai ene biotz!
Laixter Gabon!
Ba dator Jesus!...
Au zorion!

Omaetxebarria.

* * *

Eguberri, bai berri!...
Elurra gogotik;
aingeruak maluta-antza
dirade zerutik.
Jaun Jabea daukate
aragiz jantzirik;
makurtuz muintzen dute
arri-lur egiñik.

«Orixe».

* * *

Urtiak daun egunik
Ospetsuena,
Euzkelerrian beintzat
Gabon eguna:
Oldozmenez beterik
Jarten gaituna,
Zorioneko Gabon,
Gabon kutuna!

«Urretxindorra».

* * *

Hartuz gureak bezalako
gorputz eta arima bat,
Birjiña baten sabeleko
haur zinen jautsi gutarat.

«Zaldubi».

* * *

Nora dijoaz jira-beraka
nere amatsak bana-banaka?
Biotz-susnoa
argi-argiro,
bizi-biziro
eusko-asmoa,
amets dagit gaur mendi goietan,
Euskal-Erriko Gabon jaietan...

Zaraia.

* * *

Urra, Maria! Urra, guztiok!
Au da intxaur-saltza gozoa!
Urte guztian ez dot nik euki
gaur baizen pozik gogoa...

Azkue, Eusebio Ma.

* * *

Gaur, Gabon-aize lurrean,
eta Jainkoak zabaldu digu
zerua Belen-aldean:
argatik zeru ta lurrekuok
jai degu gau-biotzean.

Etxaniz.

* * *

Gizon lurtarrak, esna ta jaiki,
Jaiki ta zabal biotza ideki.
Jauna da eskale! Zein ezta erruki?
Egin animan, epel ta garbi,
Seaskatxo bat Jesus Aurrari!

Agirre, Txomin

* * *

Goazen, goazen, anaiak,
Aurra ikustera;
goazen, goazen len-bai-len,
anaiak, aurrera!

Unamuno

ERRIAK... ZER?

Gauzak argitzeko ba'da, azterketeak ez dakar kalterik, eta ez gaitezan itsutu. Orain arte, guraso epel askok ez du ikastolen etorkizunagan siñismenik izan. Sei urte bete arte bialtzen izan dituez, nonora bialtzearren, gero beste ikastetxe batera aldatzeko. Neskameen edo ume-jagoleen ordezkotzat aukeratu dituez andereiñoak. Andereiñoen aldetik bere, asko dira, euskaldunak izan arren, erderazko eskoletan dabiltzanak. Zergaitik? Estaduaren eskoletan etorkizun obea edo lasaiagoa ikusten dabelako, edo euskeraganako maitasunak bear dan beste indarrik ez daukalako. Baiña, bai gurasoentzat, bai irakasleentzat, ardurarik eta kezkarik aundiena etorkizunaren illuntasuna izan da.

Bilbo'n beintzat, aztu ezin dogun andra talde kementsu bateri esker, sortu ziran ikastolak. Lenengo urteetako oztopoak, etxerik etxe ibiltzearen estu ta larri aldiak, amaitu ziran Jainkoari esker. Orain, esandako giro illun ta bildurgarria baztertzea, ta gure ikastolen etorkizuna bera, gu, gurasoon eta irakasleen zentzun onean datza. Gure ustez, ikastoleak bete bear dauan utsunea aundia da, bear ba'da, euskereak daukan euskarririk sendoena ta itxaropentsuena bai da.

Orretarako baiña, bai gurasoak, bai irakasleak, argi ta jator jokatu bear dogu, elburuak garbi bereiztuaz eta ikastolak beste naste guztietatik askatuaz. Zein izan bear leuke elburu ori? Alde batetik, umeak al danik eta onduen eta osoen ezitzea, ta bestetik, euskal nortasun baten jaube egitea, bai izkuntzaz baita izatez be. Ez besterik!

Beste alde batetik, danok arduratzen ba' gara, berez izan leitekez ikastolak gizarte bardiñagoruntz joateko biderik egokienak; euskaldunen senak, aize barriak sartu baiño len, gizaldiak zear dakarren bardintasuna lortzeko bideak. Erri bakoitzean, ikastolan batzen diran umeak mailla guztietako —gaur eguneko mailladiko— sendietatik datoz. Irakasleen lana da, zentzunez eta maitekor, umeen artean izan leikezan bardintasun-ezak moztutzea, ta gurea, gurasoena, ikastolen inguruan egizko alkarte-komunidade bardinzalea sortzea.

Ba-dakigu alkarte ori ez dala egun batetik bestera lortzekoa, baiña bai aintzakotzat eta jo-mugatzat artu ta lan egitekoa. Guzti au lortzeko, ego-aizeak dakarkiguzan «soiñueri» jaramonik ez egitea obe. Barregurea emon dausku Arrasate'ko ikastolaren goraberak dirala ta ez dirala, zabaldu diran ixilleko orrien ugaritasunak. Iñoiz euren «buruak» errikidetzan sartu ez dabezan «arrain-atrapalariak» ikastolen sortzailletzat bezela agertzen jakuz. Euskotasunaren betiko etsaiak, orain erriaren izenean (nungo erri?), «educación libre y popular»an alde. Erria gora ta erria bera, diardue, baiña zer ete «educación libre» ta zer «populoa»? Irakasle bakoitzak edo ume bakoitzak nai dabena egitea?

Ta, ez ete dira Arrasate'ko gurasoak, beste errietakoak bezela, «populo» edo erria osotzen dabenak? Ala, orain arteko atzerrizale orreik irakatsi bear ete dauskue errizale izatea zer dan eta erria eurak bakarrik dirala? Erria, jaunak, danok osotzen dogu: umeak, irakasleak, gurasoak eta abar, baiña ikastolari buruz iñork itz egitekotan, geu gara zer-esanik geien daukogunak, eskubiderik aundiena daukogunak... ta ez beste morroi orreik.

Irakasleak eta andereiñoak, gaur, Euskalerriaren itxaropena dituguz; euren lana neurtu eziñekoa da, ta ez litzake alperrik galdu bear. Eta alperrik galduko da nastatzailleen eskuetan jausten ba'dira, apur batzuk, toki batzuetan, lilluraturik jausi diran bezela. «Igarle» barri orrein artean, zitalenak, abade-gai izandakoak dituzuz. Oraintzu batek esan ei dau: «Ikastolak, iraultzarako bide ez ba'dira, bota daiguzan ankaz-gora». Olakoak esaten dabezanak ez dau andereiño zentzudunen begi onik merezi. Olakoak, txarri aundi batzuk dira, ta ez besterik.

Urak lorrinduta datoz, baiña, apurka-apurka, gure errotara ekarri bear doguz garbiteko, eta guk, gurasook, eta zuek irakasleok, alkarturik, ikastolak geroago ta sendoago egin bear doguz, euskerearen eta Euskalerriaren onerako; ta gaillur gorridun oillarren kukurrukueri jaramonik ez! Ezagutuko ez ba'genduz!

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Euskelzaleen Batzar Gogoangarria

Euskeltzaleak bilbo'n

Aurten da 50'gn urtea, Bizkaia'n euskal-idazleen batzar gogoangarria izan zala. Gaur nok ete dau aren gomutarik? Orregaitik, aren barri emotea jakingarri dala uste dot, eta emen doa. Ea berbalapiko baizen lotsagaldukoren baten aozabalkeriak agirian jarten ditugun.

Nortzuk eragiña izan zan batzarra? Zer gai erabilli zan eta zer erabagi? Itaun onei eratzuten gure egiñalean ekingo dautsagu. Nortzuk eragin eta eratu eben? Euskalerriaren onari ta nortasunari eusteko sortu zan talde batek, «euskotar» esan oi dautsoen taldeak.

Labea bero bai bero egoala dirudi. Eta, olantxe, otzitu baiño len egin zan dana. Urrillaren lenengoan Batzarra izan eben alderdi atakoak Zornotza'n. Eta an sortu zan asmoa. An esan da, Euskaldunak euskaldun izango ba'dira, euskeraz egin bear dabela, euskera erabilli bear dabela euren artu-emon eta batzarretan.

Bizkaia'n, euskera ez dakien euskaldunik ba-da. Ori dala-ta, askotan euskaldunen batzarrak erdera erabilli bear larregi izaten dabe. Lotsari ori albait lasterren kendu bearra dago. Zelan? Guztiak euskera ikasita, edo zelan edo alan bai beintzat. Andik epe batera (1927'rako), batzar guztiak euskera utsean izan bearko eben. Izan leike —alan iñoen batzuk— erabagi orri askok gogorregia eriztea; baiña egin bearrekoa da. Zertako ibilli euskerea dala-ta «au ta ori esaten? Batian euskerea orren ederra, orren maitagarria dala; bestian... il zorian dagola euzkorrak eurakaitik, onek biar daben lez aintzat artzen ez dabelako. Urrengoan, edonoiz eta edonun euskerea erabilli bear dogula. Eta ez dakit eta ba-dakit zer. Berriketa utsa! Aspertuta gagoz olako gauzak entzuten. Negarra alde batetik eta negarra bestetik. Besterik ez. Urte asko dira olango gauzak esaten asi gintzazanetik, eta beti gagoz bardin. Au dala ta bestia dala, azkenerako ezebez».

Egoera orri azkena emon bear jakon. Berba orreik ez ete dira naiko orduko beroa noraiñokoa zan asmetako? Baiña zer erabagi dabe? Beiñik bein batzar baterako deia egiten jaken idazle ta izlariei, euskerearen alde zelan jokatu obeto ebazteko. Eta nagi barik asi dira lanean. Lenengo ta bein, Urrillaren 15'gnean batzorde bat sortu da, batzarra gertatako. Bizkai'tik eta Gipuzkoa'tik be erantzun dautse deiari. Batzorde orren egitekoa? Euskeltzale guztien eretxiak jaso, batu ta atondu egingo dan batzar nagusirako. Batzar aurreko lan oni edozein euskelzalek emon leio laguntza: «Euskerearen aldezko zeregin onetan euskalzale guztiak sartu leitekez: bai euskeldunak eta bai erdeldunak; oneik, erderaz bada be, euren eretxiak bialdu daikiez, gero Batzordeak Batzar Nagusirako euskeraz aurkeztuteko». Batzar Nagusian ez dago erderarik entzuterik; euskera utsean izango da dana.

Azillaren 20'gneraiñoko epea emoten jake nai daben euskelzaleai, bakotxak bere asmo ta eretxiak Batordeari bialtzeko: 35 eguneko epea. Eta, Lotazillaren 3'gnean, Batzar Nagusia Bilbo'n. «Euskeltzaliok; Ordua da. Euskeratzazko negarrak eta zotiñak itxi, euskal-arluari gogor elduteko. Ea, bein edo bein, geure euskerea erderen erpietatik ateraten dogun».

Eldu da Lotazillaren irua, Xabier deunaren eguna, santu euskaldun baten eguna, ain zuzen. Berariz aukeratua dirudi. Ordurako maia bete lan eldu da Batzordearen eskuetaran alde guztietatik. Eta eretxiak naiko eztirala, an dira ainbeste euskeldun gartsu euren eretxiak eta usteak aurrez aur agertzeko. Euskera utsean diardue. Nok esan dau orduko aldietan ez zala erabiltzen euskerarik euskotarren batzarretan edo erdera zala beti nagusi?

Esan dagigun orduko berbakaz: «Orain arte galdu dogu euskerea gora ta bera erabilten. Geyenetan erderaz entzun doguz goralben orreik». Xabier deunaren eguneko batzar orretan euskerea besterik etzan entzun. Eta ez euskerea goratzeko, euskereari indar emoteko bideak billatu ta argitzeko baiño. «Orrexegaitik baiño ez ba'da be, gomutagarria izango da Batzar au euskeltzale guztientzako. Orain arte ez da olango gauzarik egin. Beraz, orixe baiño besterik lortuten ez ba'da be, zeozer lortu dogu Batzar orregaz».

Jaso daiguzan berba bi orreik bakarrik gaur: «Batzar gomutagarria». Gomutagarria, benetan. Ukronian bizi nai ez dabenentzat. Ukronian bizi nai dauan batek ez dau, bada, esan, bera munduratu arte ez dala olangorik jazo Euskalerrian? Benetan Ukronian bizi bear, iñoiz izan ez dan munduan, olangorik esateko. Ukronioski ori Polonia'tik etorria ei da, baiña oraingo Polonia'tik, antza. Eta an oituta dagoz errusiarrai entzuten eurak dirala munduan aurrerapen eta gauza barri guztien asmatzaille. Ukronioski onek be arein burua daroa lepogaiñean. Eta bera izan bear bide barri guztien asmatzaille bakarra. Norbaitek esango leuken lez: ez da «kontzientzia kritikoa» eukitera eldu, ta eltzeko itxura onegirik be ez dau erakusten. Batez be —norbait orren berbak erabiltzearren— ez dau ikasi «bein egin dauan autapenari gero ta argiago ta sakonkiago eltzen, zentzuz eta gizabidez, apaltasunez eta alkar-izketaz jokatzen; goitik berako inposizioak onartzen ditu», bere anai errusitar asko oituta dagozan lez. Zer besterik egin leike Ukronian bizi nai dauanak?

Jatsi bedi Ukroniatik orain berrogei urteko Bilbo'ra, ta begirik ba'dau, an ikusiko dau beste batzuk begi obeak euki ebezala berak baiño, euskerearen gatxak eta osabideak ikusteko.

Gogoan izan daigun 1922'go Xabier deunaren eguna, eta ez aiztu egun orretako Bilbo'ko Batzarra. Baiña zer esan zan an, eta zer erabagi? Urrengorako isten dogu gai ori.

NI-TA-NOR

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbao'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

Frai Luis ez da Errodrigotxo

Beti uste izandu det unerik txit egokian azaldu zitzaiola Ama Birjiña Errodrigotxo'ri. Euskal-Erria odol ixurka zegoan gure arteko burrukak zirala-ta. Oñaz'tarren eta Ganboa'tarren odol ixurketa ura azaltze onekin bukatu zala, prantzizkotarrak bein eta berriro esan digute, baita guk siñistu ere. Beraz, egia da Arantzazu'tik barna etorri zala pakea.

Eta gertakizun orretan personaje nagusiena Errodrigotxo izan zan. Berari, artzai-mutillari azaldu zitzaion, eta ez jakintsuei. Errodrigotxo, esan digutenez, apala zan, ona, txiroa, txarkeririk gabea... ta orregaitik azaldu Ama. Orretzaz gaiñera, Errodrigotxo'ren munduan bizi ziranak ere artzai, erri-xume ta onelakoak ziran. Baita kristau zintzo, leial eta arpegi bakarrekoak!

Eta onegatik, bai, Arantzazu'tik barna etorri zitzaigun pakea. Baiñan azaltzea ta beste gertakizun guztiak berez etorri ziran. Siñesten det Ama Birjiña'ren errukia izan zala eragille bakarra, euskaldunak ain gaizki genbiltzalako.

Aro onetan, gizaldi onetan euskaldunok egoitz txar baten menpean gaude, noski. Euskera il zorian. «Ai, Arantzazu ba'litz berriro ere euskararekin euskaldunon salbamena!» pentsatu dute norbaitzuek. Baiñan pentsamentu onen iturria ez da izan berezkoa, Ama Birjiña'rena bezela. Pentsamen onen aurretik, baiñan, beste batzuek oldoztu —ta ez fededun aldetik, ez bai dira—, ausnartu, idatzi ta esan ere esanak zituzten bear ziranak eta bear ez ziranak. Auek, aurrez joan ziran arat eta onat, eta Arantzazu'ra ere aingeru jantziaz. Baiñan, auek, aingerutxo auek ez izan Ama Birjiña, ezta Villasante Errodrigotxo. Artzai mutil au epaikari bezela aukeratu zuan Ama'k; bestea... pake-epaikari txarra da neretzat euskal ortografia onartu zan Euskaltzaindi'ko Batzarrarengatik «la malhadada reunión de Fuenterrabía» esaldi makatz ori asmatu zuana.

Eta aingerutxo auek ziotena siñisturik bigarren salbamentu-tokia izateko prestatu zan Arantzazu. Koska, garai antzin artan gertakizunean azaldutakoak ez dirala asmo berdiñekoak, alde ederra Errodrigotxo batetik Krutwig'en ikasleetara, ba... gertatu bear zuana geritatu bide da. Oñaz'tarren eta Ganboa'tarren pakea Errodrigotxo'k lortu zuan zerua bitartez, bera, billa ibilli gabe. Eta Aita Villasante'k, ez bai da «intokablea» euskera arloan, batasun billa ibillirik sakabanatze, burruka ta gorrotoa azitzea lortu du.

Gure kondaira guztian gauz bakar batean etorri gera bat, euskal ortografian. Alderdi politiko guztiak, au dan zaillarekin!, onartu zuten. Egun, zoritxarreko «h» ta «erdera batuaz» alderdi ta alderdi-kumeetan sakabanatu gaituzte. Burua galtzeko zorian gabiltza alkarri mokoka. «Intelektualetan» eta «jeboetan» ere banandu nai izan gaituzte. Eta okerbide onetan ez dabiltz ongien eleiz-gizonak.

Esate baterako, Arantzazu'ko praille batzuek lege edo egi bat bezela artu dute Arantzazu, gaur, salba-lekua. Bere-bere arazoa bezela artu dute. «Espíritu de clase» edo «praille-ermandade» ori ba-dabil tartean. Berriz ere gure Arantzazu maitea «ixtorirako» utziko ba'genu! Ba-degu mendia, ba-degu elorria, ba-degu Villasante... baiñan Errodrigotxo falta! Eta giro zintzoa!

Aintzin artan bai, giro artaz, Arantzazu'ko prailleak berri-ona zabaldu zuten, eta erriak entzun eta adi ere bai. Gaur, ordea, ez dabiltz pake eragille, liskar eragille baizik. Gaur, ez daude erdian. Alderdi bat artu dute. Errotik ken nai digute izakera zintzo bat. Ta sermoietan ez dute erri-euskera egiten, ez-ezaguna baizik. «Vernacula»ri parre egin eta konkistadoreen antzo datozkigu izkuntz ulerkaitz bat eztarriko zulotik sartzera. Erretrogadoak azaltzen zaizkigute ortografia zaildu naiean, munduko jakintsuak nola erreztu dabiltzanean. Ixutu egin dira, euskeraren aldarean jarriko dituztelakoan. Dakusgun baiñan:

Ba-da praille bat, adibidez, Villasante'ren jarraitzaille itxu adoratzaillea. Guztiz pozik entzuten dizkiot sermoiak, batez ere esan oi duanean: «egi osoa ez esatea, zerbait ezkutatzea, gezurra esatea aiñakoa da, kondenagarria».

Onegatik, siñismendun bezela pena aundiaz irakurri det arestian Donosti'ko erdal asterokoan eman duan idazkia. Liburu-azoka bat aipatzen du eta «h» zaleak aipatzen ditu bakarrik. Eta beste argitaraldiaz ixildu. Bestaldetik, azken auek siñismen aldeko azaltzen diralarik eta bera praillea izan oraindik, zer obekiago aipatzea baiño? Askozaz obea derizkio, ordea, kristau ikasbideak galerazi dizkigutenak eta onelakoak aipatzea.

Onelako itxumenaz gabiltz. Ongi da euskeraren alde lan egitea, baiñan uste det, batez ere siñismen arazo onetan, neurri bat izango dutela... baita zuzendari-prailleak okerrak zuzentzeko ere.

Gauz auekin, eleiz-gizonak onelako jokabidez ba'dabiltz, ez arritu kristau asko oztutzea. Etxekoak diranez Arantzazu aupatu nai dute, baiñan zalantz nago lokatzetan ez ote duten jaurtiko; madarikazio bidean jartzen ez ote diran ari; Arantzazu burruka-leku ez ote duten biurtu.

Errodrigotxo'k Euskal-Erriari Arantzazu'n kendutako arantzak, beldur nazute ez ote dijoazten ostera itzulian. Pentsatzen bai-det ere arantzazutarrak onelako naspil-itxasoan sar arazi dituztenak, ez dirala Urbia'ko ardi zuriak... eta beste mendietako larretan elikatzea atsegin ez ote zaien.

UXOLA

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra

BILBAO - Casco Viejo

Tenderia, 15 eta 16

GAZTE

IKASKINTZAKO GERTAERAK

Sarritan, batez bere senide artean edo lagun artean ikasleren bat daukogunean, facultaderen bat sarratuta dagola edo olako nasketaren bat entzuten dogu. Naste onen sustraiak agertzera noa emen:

Unibersidadera sartueran, mailla aundiegia sortzen da. Alde batetik, askatasun larregi dagolako era batera, ta geiago kolejioetatik datozenentzako. Bestetik, COU'n ikasikoa labur lotzen dalako, unibersidadeko azalkizunak bear dan lez ausnartzeko.

Mailla au, unibersidadean doguzan irakasleak kontuan izan ezkero, aundiagoa egiten da. Danok dakigu irakasle gitxi dirala, ta unibersidadera sartu ta geituko ba'dira, bete bear dabezan eragozpenak gitxiago izan bear dabezela.

Baiña emetik, eta unibersidadean aurkitzen doguzan irakasleetan, asko zarrak dira, ta euren irakaskintza erak zartuta dagoz. Buru oneitan, ikasleakaz alkar-izketarik izatea ez da sartzen; aur batzuk garalako ustean-edo.

Edo, gazteak dira, dirua irabastea baiño ardura geiagorik ez daukenak. Onetariko irakasle bategaz nasteren bat sortzen ba'da. Orretarako eskubiderik ez daula-ta, ez dau zuzentzen. Marioneta batzuk baiño ez dirala erakutsiaz.

Emetik sortzen dira opor-egiteak eta abar. Indarrezko erabaki bat lez, gertaera au zuzendu erazoteko. Olan, aurreko urteetan baiño geiagok suspendituten dau, ta ikasle beartsuenak euren ikasketak utzi bearra izan ere bai.

Baiña, naste guzti orreikaz, zer lortzen dogu?: Irakaskintza ez dagola ondo eratuta agertzea bakarrik. Ikusten dogunez, ikasleak ordaintzaleak izan arren, oso oinperatuak gara. Baiña, gertaera au samingarria izan ta ere, gizartearen eragozpenen irudi bat baiño ez da.

URIARTE'TAR KEPA

ONA ta RAM EZNEAK ZUK ONARTZEKOAK DITUZU

NUNDIK JO?

Erdian alboko,
ezkerrean eskumako,
eskuman ezkerreko,
guzietan besteko.

Nai bearrak
aldatzen diranean,
bear naiko
gure almenean.

Erriaren erostak,
erosten erriak,
bizitzako bideak,
gizon eziak.

Garaiaren lepoan,
lepoa garai ezari;
ezaren baietzean,
baietza bakoitzari.

Bakoitztasuna nagosi
dan egunetan,
iraultzak egosi
gure anaietan.

Modaren aoan,
aoaren deia;
diruaren nagositasunean
aberatsen naia.

Agintaritza ta jakintza,
aunditasuna ta dirua,
emakumea ta iraultza,
da gure gaurko gudua.

PELLO

AURREN ABES-LEIAKETEA

«Jose Maria Ares»en II Omenanldia

Bilbo'n, Gaboneatik Erregenetara bitartean, «Parque Infantil» deritxoen aurren jolastoki berezian, igaz lez aurten bere, 13 urtetik beerako neska mutillen arteko abes leiaketa polita eratu dauskue. Euzkeraz eta erderaz gura dozun erara abestu zeinke, baiña guk uste ta orretan ziur gagoz, zuk euskerazko abesti politak dakizuzala ta gure euskera maitean egingo dozula zure alegiña.

Orra joan gura ba'dozu, abestera, bialdu zure izen abizenak, zuzenbidea, urrutiz-kiña, ta zenbat urteko zaran, baita zelan abestuko dozun, Bilbo'ko apartado 1.148. Taldean ba'zoaze, talde bakoitza bederatzitik gorakoa ezin izan.

Sail bitan izango da leiaketea, zazpi urtera artekoak eta zortzitik amairura artekoak, zuen abestieri laguntzeko ezer joten ba'dakizue eruan ori be. An, «Feria de Muestras»en dan areto baten izango dira leiaketak eta azken nor-obea be; txikien leiaketea il onen 25'gnean izango dozue, ta aziagoena Urtarrillaren 1'goan. Azkena, il orren 6'gnean, ta sari politak izango dira onenentzat.

An ikusiko ete gara ba, ba-neukan nik zure abots polit ori entzuteko gogo bizia!

ASTI

EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK

ZAZPI-KALEAK — Martin Aldazabal TENDERIA, 3 — CASCO VIEJO

BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

KONTU KONTARI

Arratsalde negu illun baten, aspaldi, neure lagun bataz, Praixko izenez, «zinkotronko» batera eldu nitzen. Parkatu, «zinematografora», «Arroz amargo» titulo zorrotza euken pellikula ikustera.

Zer ikusi ba'uken, bai. Neskatilla koitxaduek zenbat gora-bera. Diru paltan, okela sobran. Danak bere atzetik, ez desio onien ganera. Ortozik, otzak jota. Dardar-dardar, korputza otz eta biotzien ixotza... Dana aldrebesa, dana atze-aurrez, suberte txarrez ikusten gendun neska ori zoritxarreko autuetan.

Alako baten, gure aurreko aurkixen asi da andrazko bat zurrustada baten. Negarrez, zotiñ da ulu baten, arek arrats garratzan gora-berak ikusmidan. Zotiñe, zurrutze, paiñolo galanta ata, dar-dar, andrazku bigun orrek ez, ez eukan paramen onik, ezelan bez. Inkesie, lepo tartana, geratu bakue...

Baiña, nik pentsauko neban ba!...

Praixko'k, andrazku ori alan ikusi eran, lepuen jo, ta!...

—Zu, zu, senidie al dozu?...

JUAN JOXE ARRIZABALAGA, «MARKIÑA»

OLEA'REN TXORIAK

Ondarru 'ko txorizaleak ixildu ziralakoan nengoan baiña, bai zera!, oraindik, AGUR' en tokirik lagaten ba'dautse, naiko endredu egiteko dagoz.

Olea'ren zozoa dala-ta izan diran eztabaidak, nai-ta gauza gitxi argitu, erdi amaitu diranian txorizale onen «pardillo real»agaz sartu dira. Zazpi bertsoko sailla bialdu dauste gure aldizkarirako. Ez dakit zein dan bertsolaria. Edozein bada be ez dira baztartzekoak irakurleak ikusiko dabenez.


Erroma'n santutzat bat izentatu nai dan auzian, bateri diabru izena emoten dautse, ta bere egitekoa santu bidean doanaren utsak agertu ta nabarmentzea izaten da. Baiña ala be merezi dabena santu egiten dabe.

Txori kontuan be bardin. Olea'ri asko aurka urten jakoz, baiña areriok arerio, bera iñor baiño gorago dago txori kontuan; besteak barriketak ta Olea'k sariak.

Pardillo real kontuan ni ez naz sartzen; gaiñera ni ez batan ta ez besteen alde nago. Nire zeregiña onetan bertsuak argitaratzeko bidea egite da, ta ori egin dot.

KAMIÑAZPI

OLEA TA PARDILLO REAL'A



I

Uste izanagatik
Zerbait nekiala,
Ikusten det txoritan
Jakitun zerala.
Nere galdera ere
Ezta ain makala;
Erantzun egidazu
Eta beriala,
Zer kolorekoa da
Pardillo Real'a?

II

Munduan nola degun
Beti zer ikasi,
Txorizale guztiei
Galdezka naiz asi,
Eta oitako batek
Dit adierazi,
Pardillo Real ori
Nai dula ikusi,
Benetakoa ba'da
Gaiñera erosi.

III

Jakin zazu sarritan
Entzun naizena,
Txoriak «truk» egiten
Abilla aizena;
Zure jokoa ez da
Garbi ta zuzena,
Oraintxe egin dezu
Gauzik errezena,
Pardilloari jarri
Errege izena.

IV

Txori orren izena
Ez da legezkoa,
Naikoa du kaiola
Kañaberazkoa.
Kaskar gañeko tanta
Margo gorrizkoa,
Uste aldezu dala
Koroi Urrezkoa?
Pardillo Arrak ori
Dute berezkoa.

V

Errege gisa ba'da
Azi ta ezia,
Derrior izan bear
Txori berezia;
Ez dakit Tituloa
Daukan merezia!
Lenbizi entzun nai det
Bere erezia,
Kantatutzen ote du
Perossi'n Mezia?

VI

Aukeratu egun bat
Idurre'n biltzeko,
Orren doiñu eztiak
Guztiok aitzeko,
Txorizale artean
Erabakitzeko;
Gaitasun berezia
Ba-du kantatzeko,
Nagusi ta Txoria
Biok koroitzeko.

VII

Txori orrek bear dik
Izan oso ona,
Iñortxok etzekian
Orlakoik zegona.
Egia baldin bada
Oleak diona,
Idurre'tikan au da
Eskatzen zaiona,
Pardillo Real'akin
ETORRI GALDONA.

MONTETXUKO

PURRA!... PURRA!...

Ara, emen nauzute berriz. Apur goxoekin nauzute, bai. Idatzi didatenak ala diote beintzat, goxoak dirala. Eta nik, egia esanda, noski, atsegiñ biziz artu ditut zuen itz biotzgarriak. Beraz, mil esker.

Zatozte ba, orain ere, nere ingurura. Baiñan burrukarik gabe; zalapartarik gabe; danentzat bai dago. Bai... bai... apurtxo bat egon. Ez zaitezte ernegatu... aukeratzen ari naiz ta. Len esan nizuena, berriztuko det gaur: Gizon batek dituan egoerak ez dirala beti berdiñak... Gaurkoak ez ote dira illunegiak izango?

Ara... Ara apur batzuk:

Burruka emen,
burruka an.
Aberrietan...
Eleizetan...
Burruka bai
ta guk ez nai.

«Burruka ekartzera etorri naiz»
dio Jesus'ek ebanjelioan.
Guk, kristau-mundutarrok, pakea nai.
Beraz. maite bear lagun urkoa.

Nere gaztaroan artutako oitura, ekandu zaar bat daramat nerekin. Goizero eskuetan artu ta arreta aundienaz, aztertzen det, gironeurkiñ txikia, baiñan bai ona.

Giro-neurkiña aztertzen det egunero,
egun giroa gogotsu asmatu naian.
Tresna egokirik ez ote da munduan,
asma dezan zer gertatzen dan nere baitan.

Dana illuna
dana txit beltza.
Noiz eguzkia
bero-argiduna?
Lurpean bizi bear
ta satorra ez izan...
Begiak eguzki nai
ta beti illunetan.
Ezagutu nuen
azkatasuna.
Urte auetan nago
dana lotua...

Ta nere lagunak, beti ta nunai izaten bai dira; errukiz beterik, esku laguntzaille maitekorra luzatuz, arnaz berriz zuzpertu nairik:

Zaude lasai,
zaude pozik.
Orixe nai...
ta eziñik,
ikusten naiz
aspalditik.

Jeremias ote naiz
egun auetan?...
illunpe ni ikusiz
ta negarretan?

«Baikorra izan zaitez»
didate lagun onak.
Ta maitasuna bear,
eguzki argi-beroak.

Biaramonian, giro-neurkiñak gora jo du. Ekaitza igaro ote zan? Baliteke... idatzi nuana asmatzeko ala bear.

Edertasuna maite det
ta edonun daukat bera.
Mundo zabalean dago
Jaunaren dirdaia da-ta.

Nere aurrean bi aur irriparri.
Bai dala ederra ikuspen ori
Errekako ur gardena dirudi.
Bere ondoan Jainkoa agiri.

Ondo ikusten da aurtxo oietan
miñ aundirik ez dutela benetan.
Ez kezka, buru-neke oraindik.
Garbitasuna ager begietan.

Gizonen artean sarri gertatzen dana ikusi nuan beiñ. Batzuen toleskeria, azpikeria, garbi agiri jarria izan genuen. Ta begira zer bota nuen.

Zeru urdiñean egunez
izarrik ez.
Eguzkia nagusi danez
izarrik ez.
Jauntxoak agertzen diranez
txirorik ez,
eskutatu bear nai ta ez,
izarrak lez.

Asko maite det, noizean beiñ beintzat, kalez kale ibiltzea. Begiak arindu, burua argitu, bular auspoa aizetu, orra nere ertenaldien jo muga. Etxeratu ta gero, beiñ, auxe idatzi nuen.

Aurrian igaroz, bide egiten,
gizon emakume, zaar ta gazte
Arpegi ezberdiñak dira agertzen.
Norek irakurri ainbeste naste?

Ni denoi begi-begira,
ikertu nairik barrua;
arpegi liburu dala,
irakurri nai gogoa.

Otsaillean zan. Arregi'ren alarguna Mari Jesus'ek ixtripu batean arkitzen du eriotza. Mari Jesus... bai euskaldun bene-benetakoa. Zenbat lan egin zuan, «Alkartu danok» euskal kanta liburu ederra argitaratzeko. Astero, bai zintzo, alkartzen zan gurekin. Ta musikalari ona zalarik, laguntza ederra guretzat.

Beste bat eramaten dezu,
euskal-andere on-leiatsu.
Gutxi gerala ta, urritsu
gelditzen gera ta negartsu.

Mari Jesus'en bizitz dana bai latza,
baiñan garratzago bere eriotza.
Berebil batek bidean utzi zuen,
gorputz egiña an ikusi genuen.

Ta eldu zitzaigun Otsaillaren amaia, zorionez, bai zorionez. Bere izenak ondo garbi dio, otza duala jaun ta jabe. Ta nork maite otza? Ez nik beintzat, gazte-urtetsu izanik ere.

Urtiaren bigarren illa
joan zaigu oartu gabe ia.
Bestek baiño motzago izan,
ariñago aurretik joan.

Epailla datorkigu gero. Bere lenengo egunian Santu aundi baten eguna.

Bayona'ko Leon deuna
ta emen ez ezaguna.
Noiz jakingo degu gure dana,
ziaro baztertuz beste dana?

Epailla zatoz lenbaitlen,
ekin eguzkia esnatzen.
naiko lo eginda dago,
betor gure urbillago.

Ta gaurkoz azkeneko apurra. Au ere, zoritxarrez illuna.

Orain ere Euskal-errian negua;
bai negu zorrotza benetan guretzat.
Lurrera bota du amona gaxua;
euskal jatorretan naigabe mingotza.

Illetak, illetak sarri.
Negu ostro erortze beti.
Biotzetan sakon samiñ,
gure begiak negarti.

Gutxitzen goaz, gutxitzen.
Txit latza gutxitze ori.
Neguan goaz murgiltzen;
kimu-berritze, noiz guri?

Euskaldun gazteak, zatozte!
Euskal-ama dezute deika.
Ikus zuen Ama-euskera,
bere altzo goxo eskeinka.

OLABEAGA'TAR IÑAKI

AA

ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 38
21-15-07 urrt.
BILBAO-5

ANTXOTAKO GUDA

Emen idatzi bear detan gaia, jakingarria izango dalakoan nago. Ez da oraindik denbora asko gertatu zala Prantzi'ko itxas aldean, emengo itxas ontzi bateri gaiñera. Beraz, esan dezagun.

Francisco Munitiz Astoreka, «Nueva Miren Begoña»ko patroi nagusiari gertatutakoa au da; ta berak dio: «Atunetarako karnata arrapatzen geunden sei milletatik kanpora».

Izparkariak galdetu zion: «Ez al ziñaten sei milletatik barrura?» Ez jauna. An gendukan radarrak adierazten zun, zazpi milla ta lau dezima, Le Coreone farutik kanpora geundela. Prantzi ta Espaiñi'koak alkar artutako legeak, sei millatik kanpora ontzat ematen ditu. Gu zazpitik ere gora geunden. Gure inguruan, Prantzi'ko «guarda» zegon beren urak zaitzeko. Guk, ordea, kanporago geundela ikusirik, bere biztan sarea bota gendun. Berealan etorri zitzaigun, ta alboan jarriaz, bigarren komandantea beste mariñel batekin gure ontzira sartu zan. Berealan eskatu zidan gure «rol» edo ortako daukagun itxas-liburua. Nik galdetu nien: Zer dala-ta edo zer arrazoikin? Sei millatik kanpora egonik, zer eskubide dezu onelako indarkeriz nere ontzian sartzeko?

«Ortan geundela», «guarda»ko komandantea bere ontzian agertu zan, ta berealan tiroka asi zan ametralladoreakin. Jaunak, ura zalaparta gurea! Ura bildurra! Batzuk beren txalekuak artu zituzten uretara irtetzeko asmoakin. Nere bi semeak deadarka esaten zidaten: «Aita, sartu zaite barrura!» Nik ordea, ba-nekin arrazoia nuala, zazpi millatik kanpora egonik. Zalaparta ortan geundela, lenengo komandantea lurrera jausi zan bere «guarda»n. Orrek eraginda-edo, ametralladorea asi zan tiroka! Bien bitartez, bigarren komandantea bere mariñelakin, gure ontzian eskutatu naian balak jo ez zezaten.

«Goazen arira, ta ondorengo gertakizunak. Sarea uretan gendukan. «Guarda»koak, berealan, bonbak edo lerkariak sare barrenera botatzen asi ziran. Ez zuten ardurarik bonba oiek gure egurrezko ontzia ausi zitekenik... ta guziak ondora joan ta asko ito. Ondoren, dalako aingur edo granpiña bota zuten gure sarera, sarea austearren. Piratak zirala zirudien! Amarratu zuten gure ontzia ta arrastaka eraman sei millatik barrura, gero beren uretan arrapatu zutela esateko.

«Guarda»ko komandatearen naia zan, gure ontzia arrastaka zeramakiela gure elizak sarea arrapatzea, ola besoak lotuta gelditze arren. Nik, berialan agindu nien gureeri labaiñez austeko txikot eta sarea. Baiñan «guarda»ko komandanteak tiroz ondora botako zula gure ontzia adierazi zigun. Nik erantzun nion: Gizona ba'zera bota zazu, orrela ikusiko du ortarako dan legeak, erderaz esaten dan «Derechos Internacionales del Mar» orrek, ontzi ondoratua nun dagon, edo sei millatik barrura ala zazpitik kanpora. Ez nai, ordea, ori komandanteak. Ez komeni iñork jakiterik piratekeri ura!

«Komandanteak bere ametralladora nere lema lekura ta neri begira jarri zun, nik irten nun lema lekutik eta esan nion: Ona ni emen, bota tiroa nai dezunean. Ez zun, ordea, tirorik bota! Arrokeriak txepeldu egin nunbait. Nik, ez zutela arrazoirik agertu nion, zazpi millatik kanpora geundela. Ola adierazten zula radarrak eta abar. Alperrik!

* * *

«Azkenik, nai zutena egin ziguten, ta La Pallice errira eraman, goizeko irurak aldean eldurik. Iskanbilla arek iru ordu luze iraun zun. Baiñan, emen esan bear det, alegia, lenen gure ontzira etorri zan bigarren komandateak, nere arrazoiak ontzat artu zituala. Ala zion berak: «Bai, arrazoi dezu, zure radarrak zazpi millatik kanpora markatzen du, baiñan ni, lenengo komandantearen agindua bete bearrean nago, ta orregatik ez daukazu beste erremediorik; gurekin Prantzi'ra joan».

«Gero, La Pellice'n ogei milla franco ordaindu bear genitula esan zigun ango agintariak. Sarea ere kendu, ta ura ordaindu arte espetxean bezela egonduko giñala. Gaiñontzekoak; eman bearra izan zuten diru ura, ta andik egun batzutara berriro irten itxasora arrantzara». Orra emen esanda Bermeo'ko itxasontzi orreri gertatutakoa Prantzi'ko uretan.

Zer esago degu, guk, geiago? Sasoi artako piratak orrela ebiltzen zirala itxasoetan. Ordun, ordea, zibilizazioa otzago zegon munduan... gaur orrelako gertakizunak ikustean, alako amorru bizia emanik, gorrotoa agertu bear alboko itxastar oieri. Itxasoan anaiak bezela arraintzan ebilli bearrean, orra or nola dabiltzan.

E. OZKIN

Eskaleak

Eskaleak era eta mota askotakoak izaten. Japon eta Txina arteko guda artan amaikatxo errukarri ikusi genituan. Etsaiarengandik igesi zebiltzanak. Etxerik eta aterperik gabe gelditu ziranak. Gudaritzar ankerrekin lo-egin nai ez zuten emakumeak.

Olako errukarriak orain eguzkipeko errialde guztietan ditugu. Aurtengo Azil onen emezortzigarrenean txinatarrek, Peking'o agintariek alegia, Kurt Waldheim zadorlariari eskaritxo tximena zuzendu diote. Auxe: txinatarren agintepeko lurralde aietatik igesi alde-egin dutenei iñolako laguntzik ez ematea. Ez Tibet'etik India'ra igeska ioan direnai eta aspaldi ontan India'n dabiltzanei. Ez eta gorrimenditik igesegiñez Honkong eta Macao'ra biltzen diranei ere.

Olako igeslari eta errukarri oriek Erri Batuen Batza'ko laguntzaz bizi zaizkigu, ortarako izendaturik dugun Sadruddim Agha Khan iaunaren bitartez.

New York'en txinatarrek duten ordezkari Huang Hua iaunak Kurt Waldheim'i eskutitzez egindako eskaria orixe degu. Formosa'ko izparringiek berria batetxo iruzkiñik gabe eman digute. Kurt Waldheim'ek txinatar ordezkari Huang Hua iaunari zer erantzun dion pozik ikasiko nuke. Txinatarrei amor ematen asten ba'dira, eskean lurralde aietatik irten diranak malko ederrik irentsi bearko dute.

Ostera lengo tokietara itzuliko al dira? Biderako bear dutena nondik sortu? Bein beren lenagoko txokora iristean zer egin? Galde askotxo, noski!

Bitartean samariar zintzorik ez degu ikusi nai!

ETXEBERRIA'TAR P. S. I.

MATXITXAKO XIII

Matxin izenaren zabaltasuna

Aintxiña-aintxiñatik, Euskalerrian eta gaur egunean, ludiko baster askotan MATXIN izena zabal da, izen ori nondik sortua dan, onetzaz, ondiñokarren gitxi edo ezerez idatzi da, neure alegiñak izan dira MATXITXAKO itzak zirikatuta gogoz aztertutea; bere «eskutuki edo ixiltza» ainbat gizaldietan lozorroan izan dana ixartu, esnatu, eta beraren asikaldiko jazokunakaz egia atara-eragin, gure artean ez dadin galdu, eta izen aonek emon dausku oñarria MATXINTZALARIAREN izatea ere berbiztuteko, eta izen aonek, leunako edo aintxiñetiko TORRONDO eta SEKUIDI lur-aldeak, aldatu ebela MATXITXAKO izen barriagaz.

Eta MATXITXAKO izen aonetik sortu dira, gizaldi ziar beste ainbeste izen, euron artetik: MATXAKAKO, MATXAKAKU, MATXAZAKU, MATXAKU, MATZAKU, MATXIKAO, MATXIKU, MAKU, nik dakitanatatik.

Baiña izen aonetatik sortuak direala esango neuke edo itz aonek bizitasuna emon dautsoela Euskalerriko eta erbesteko izen batzueri, esate-baterako:

MUNGIA'ko MATXIN, entzute andiko gizon kementsu eta Kristiñau ziñopea, bere gurasoen uzkurtza ukatzea baiño len, bere odol garbia Kristo'gaitik emon ebana.

MATXINADIA deritxo Bizkaya eta Gipuzkoa'n sorturiko burruka gogorrari.

Eta ain zabal ludiko basterretan dabil MATXIN, Canarias'eko Lanzarote ugartean, San Bartolome errian, Teguise deritxon arrialdean MATXIN izena agertuten da.

Gure Gipuzko'an MATXIN-BENTA deritxon erria da.

MATXIN-BORDA Irun'go baserri baten izena da, Meska auzoan.

MATXINLAMBARRI, Azpeitia'ko Idoyeta, Zestona aldeko etxea.

MATXINBARRENA, Ibarrangelua'ko auzotegi Akorda aldeko basoa.

MATXIN, Mendata, Gernika aldeko basetxe bat.

MATXIN DE ARSU, Pantzestar gudaketan, ainbat ez-bear pantzez gudarozteari egiñekoa.

Onez ganera sarri irakurten dira: MATXETIN, MATXIN BEDAR, MATXINGAR, MATXIN GARRATZ, MATXIN GORRI, MATXIN GORRINGO, MATXINKIRRILIO, MATXINMATS, MATXIÑO SALTALARI, MATXIN SALTARI, MATXIN SALTO, MATXIN SALTULARI, MATXIN SUKALDE, MATXIN ZUZALE, MATXITA, ta abar.

Baiña toki izen askotan, batez ere, erreka illunak, baso sakostak, eta bildurgarrizko lur-alde eta uregalak geyenetan MATXIN izena ezarriten dautse, adierazoteko izugarrizko tokiak direala, oitura au zabal aurkituten da Euskalerriko basterretan.

Izen onetzaz eretxi asko dira, bateri baiño geyagori entzuna da, TOURS'eko MARTIN DONEAREN izenetik sortua ete dan, orrelakorik ez! Done au, txikitatik Jaungoiko-bidekoa zan, bere soiñekoak ere beste batzuk jantziteko emoniko Done andia da. Beste batzuen ustez, MARTE Erromatarren jinkoizunatik etorrikoa ete dan, baiña batzuren eta beztetzuon eretxiak arakatuten ba'doguz zeatz iñondik ez dausku egizko argitasunik emoten, bakarrik BERMEO'ko MATXITXAKO itzak eta berton eta beronen itxasaldietan jazoriko gertaeraren bidez, esan daikegu zerbait egizko argitasuna dakarzkula, jakin-erazorik BERMEO'ko uritik sorturiko itza eta ludi guztian zabaldu edo edatua dala.

Ba'litzake idazlantxo aoneri batek baiño geyagok akatzak billatutia, eta guztiz onurakorra izango litzake, akatzok zuzendu eta arteztutea, olanixe argitasun-bidez, geure erriko izen, jazokun eta gora berak ez dagiezan betiko lurpetu.

Eta ez dago beste biderik, bein asiriko lanari gogoz jarraitutea baiño, batzuren eta bestearen «aikomaikoari» jaramon egin-barik eta al-dala jarrai beti Euskaldunen bidetik, gure gurasoaren lorratzatatik: IRAKURRI ETA IKASI eta EKIN ETA JARRAI.

GAUBEKA ETA DUO'TAR BITOR

Jon Deunen Zabalgunea

Azken aldiko idazlantxoan Gixane Enparantzaz jardun bidea izan ba'neban, andik eta Atxuri'tik zear San Anton'eruntz jarraiturik, eskumaldean ala ere, Jon Deun biren Enparantz txikiaz aurkitu oi garanez, gaur onetzaz labur eta alaikiro zertxobait esatea gura neuskizue. Txikia benetan dogu bera, ori ta be edesti jatorrez beterikoa ain zuzen.

Euskalerri osoan Jon Ugatzaria batetik eta Jon Barrion-ebanjelaria bestetik txito ezagunak doguz eta euren goratzarrez basatxauno ugariak Euskal-erri barna eregi dira. Bilbo'ko zokotxo ontan ere, ba-egoan XV enkian Deun onein izenak eroiazan baseliztxo eder-txukun bat, inguruan idoro leitekean gaizotegiaren babespean noski. Len baten eta gaizotegia izan baiño aurretik, tegi, aterpe au erromesen ostatu txiki bat ei-zan bakarrik, ta XIX mendean Orbegozo etxegille jaunak gaur zutoin-lorioz aurrekaldeturik dakusgun jauregi yaukala eregi eban.

Txikitatik, umearoan batez be, ainbat bider nire anai ta Zabalbide'ko lagunekaz, Oillerias aldekoen aurka jolas eta burrukaldiak prestatzera bertara joanikoa naz ni ere. Gero, ta oraintxo arte, Erti ta Langitz Etxea izentatua izan zan. Ta, urte batzutik ona antze trebetasun ikaskizunak emon daroez bertan.

Jauretxe onen eskumaldetik arresi luzetxo bat bestalderaiño, Zabalbide kaleruntz doa, ta jauregi ta ormaren artean urteak urte dirauan iturri bat dagerkigu. Guenez, Enparantz azkenean eta Zabalbide kalearen ertz-ertzean «Vitoria de Lezea»ren jauretxe ospetsua tinkaturik egoan. Arabarrak ziran antza bere jabeak, ta edeslariak dirauskuenez, tratalari oso ezagunak eurak.

Oin geiago luzatu barik, gure idazle errikoi parebakoa zan Kirikiño'ren omenez bere «Abarrak» idaztian dakarren jazoriko bat aipatzera noakizue. Izen burua: «Atxuri'ko Millagrua» (jazorikua) da. Ordutik ona belaunaldi batzuk igaro dira, baiña siñisteko jazoerea da ta Atxuri'ko enparantz baten gertaturikoa beraz. Bilbo txiki artan ia danak ezagunak ziran-ta; bilbotar barregarri batzuk iragarri eben bertako izparringi baten, eztakit nungo erritan atso aberats bat il zala, eta bera errena zanez ta bilbotarra jayotzez, milla ogerleko batzuk utzi ebazala Bilbao'ko errenei bananduteko. Errenen batzar toki a Atxuri'n izango ei-zan. Izentaturiko eguna eldu zan, ta etxe baten atarian mai bat tintontzi, ingi ta guztiz gerturik egoan. Iru jezarleku aldamenetan ta iru edo lau gizon zutiñik eta piperra baiño seriuago batera ta bestera ibilli ebiltzala ikusten ziran.

Goiz-goizetik, kojuak errenka-errenka etozan. Batzuk makulu bigaz anka bata dingiliz; bestetzuk eperdi-ganean erdi-tatarrez. Ta azkeneko batzuk ere, burtxoietan iñork bultzaka eruanda. Inguru guztiak errenez betetu ziran. Balkoi ta leioetako jendetzak esaten eban: «Nok uste izango eban Bilbao'n onenbeste kojo eguanik?»

Iru gizon seriu orreik adierazo eutseen kalekoei etxeko atea itxi bear ebela diruak barrukaldean gertatzeko ta laster samar izango zala diru-banandutea. Itxi eben atea ta barriro zabaldu zanean tximistea baiño ariñago urten zan andik, zer uste dozue? Zezentxu bat!

A zan usubillua! A aiñeketea! Ta, zezentxoa topeka gogor be gogor; au bota, bestea zapaldu! Onela zezentxu madarikatuak minutu baten argitu zituan inguru guztiak, ba, errenak izan arren, makillak bota ta arin baiño ariñago urrutiratu ziran guztiok. Millagrua izan zan. Emen, dan-danak bat-patean osatu ziran, eta balkoi-leioetako jentea barriaren barrez, algaraka, tripetako miñaz geratu.

Areik ziran bai gogaldi ederreko gizonak! Ta, gure Basarri'k Tolosa'n esan euskun lez, Kirikiño lako idazle errikoiak Euskal-erriak gaur egunean be bear dituanak ain zuzen. Or dozuez orain be, ta eurak parkatu daistela, Basarri bera, Abeletxe, Markiña'ko Arrizabalaga ta besteren bat erria euskal-zaletasunez betetzen diarduenak. Aurrera ba, batzuk idazten eta guztiok irakurtzen. Orrela ez jaku ez iñola ere galduko gure Euskera maitea.

ARREGI'TAR JOSU

LABUR, BIZI TA ZORROTZ

Nazioarteko goraberak

Nixon'ekin itzegin naiean ote Fidel Kastro? «Wall Street Journal», berri onen emailleak dioenez, dagonekoz Kuba'ko agintariek ari dira irratiz erria gertutzen. Dirudienez, egazkin arrapatzaillez asi dituzten elkar-izketak beste zenbait arlotara zabalduak izan ditezke. Sobietarren aldetik ez dago nunbait iñolazko eragozpenik. Bi milloi dolar eguneko kostatzen bai'zaie kubatar ekonomia babestea...

Dirudienez ere, Nixon'ek oraingoan benetan azkena eman nai dio Vietnam'go guda ankerrari. Gabonetako erragalorik atsegingarriena ba-litzake vietnandarrentzako. Etsi-etsian Nixon'ek luditik xextra guziak zuzterka nai ba'ditu ez zaio bat ere zail izango asmo ori betetzea, zartaiaren kirtena eskuetan duen ezkero. Datorren udaberrian El Kairo ta Tel Aviv'era egingo dituen ikustaldietan ba'liteke lurralde aztoratu artako bakea antolatzea. Komeni omen zaio nunbait Ipar-amerika'ri. Izan ere, urren urteak dijoazken arabera arrolio pilla gero eta izugarriagoak an aietatik erosi bearrean aurkituko da.

Ego-Korea'ko lendakariak, ots, Park Chung Gee'k, nai duen eran eta nai duen denboraldian agindu dezake onezkero. Ortarako jaso duen erri-iritziak erabateko baiezkoa eman dio. Nai litzake ezezkoaren aldekoeri eginpideak ukatu ezkero... Zirt edo zart egin al izateko ere auteskundeak bear ote zituen?

Oraindik jatorrago jokatu du Filipinas'etako lendakariak. Fernando Marcos'ek, gudulegepean erria jartze arren, zuzen-zuzenean Jaungoiko guziz altsuaregana jo du iritzi eske. Artu nai zuen jokabidea bidezkoa zitekean ala ez galdetzean, Aregandik bear ainbat onespenezko zantzu jaso omen ditu. Ez dedilla ain ziur egon ba'da ezpada ere, ea deabruaren lanen bat ez dan izan...

Il onen 21'an Eguzkialdeko Berlin'en izenpetuko da alemaniarteko ituna. Leenik izendatutako eguna baiño bizpairu egunez geroxeago ospatuko da. Willy Brandt berbera siñatzaille izan ez dedin bestaldekoek egin duten aldaketa omen, oarle norbaitzuren ustez. Alegia, Brandt jaunari arrera berorenbat eskein lezaioketen beldur omen dira eguzkialdeko agintariak... Siñesteak ere lanak ditu!

Rumania'ren ordezkariak eskabide bat zuzendu dio Helsinki'ko batzarrari. Bata bestearekiko artu-emanetan indarrezko keiñurik ez baiña bakezko asmoak erabiltzeko asmo sendoa ar dezatela batzar ortan eskuartu duten laterri orok. URSS'en kide izan arren, ajola zaio nunbait Rumania'ri aren itzal beldurgarria beregandik urruntzea. Eta noiz eta nun aurkeztu zekiokean «enbidoa» jaurtitzeko une egoki ta aproposagorik?

Leonid Breznef bere adiskide hungriatar agintarieri ikustaldi bat egiten izan da. Bertan zegoelarik zurrumurru bat nagusitu zan Budapest'en. URSS'en inguruko komunist laterriek batzar nagusi bat ospatzekotan dirala Gabon aurretik. Europa'ren bake arazoarekin zer ikusirik bai omen luke batzar orrek. Jakiña, izkilluzko neurketak laister salerosketazko borrokari lekua utziko liokelarik, zer erabaki arturik edukiko dute noski.

Azken auteskundeek kristau-taldeen atzerakada ekarri dute. Lenbizi Alemania'n, urren Italia'n eta azkenik Bee-Laterrietan. Ostera, an eta emengo sozialisten egoera naiko sendoturik atera da. Frantzia'k du itza urrengoz. Eta egia esatekoz, ezker joerako alderdiek bein ere baiño elkartuago agertzen diran bitartean, naiko nasketa nabaitzen da gaullisten artean. Zer gertatuko litzake auek lege-biltzarrean duten maioria galdu ezkero? Aldaketa sakonak agintzen dituzte ezkerdarrek...

Txile'ko ekonomia kinkaldirik larrienean aurkitzen da. Diru-laguntza izugarriak bear lituzke aurrera irteteko. Eta Ludiko Banketxeak ukatzen dizkiolarik, Allende jaunak Mosku'ko agintarien aurrean negarrari jo bearko dio. Lendidanik dituen zorren gaiñera, datorren urtean 550 milloi dolarren janariak kanpotik erosi bearko ditu, bertako diru-ministru dan Orlando Millas jaunak esan duenez. Ala ere, berak eragindako iraultza ba-dabil, eta demokrazia zapaltzeke gaiñera. «Ez gera oraindik sozialista laterri bat; sozialismoruntz goaz. Gure iraultza sortzaille da; ez dugu nai apurtzerik, eraikitzea baizik» Allende jaunaren itzak dira. Baten batek jaso nai ba'lu, ez da irakaspen kaxkarrenetako bat...

Ekonomi-arazoak

Izadiak bizirik iraun dezan, itsasoak berebiziko garrantzia du. Arnasgai, janari, arrolio, askotariko mea ta beste zenbait aberastasunen gordaillu dalarik, zaindu bearra dugu gero eta kutsatuago biurtzen ari dan itsasondoa. Itsasoarekiko araudi baten bear larria dugu. Laterri-Elkarte edo ONU'ren altzoan arazo ontaz benetan arduratzea dagokie ludiko laterri guzieri. Eta bidenabar, lurreko ondasunak banatzean ez bezelako zintzotasunez ea jokatzen dugun ur-azpikoak banatzerakoan...

Suezia ta Dinamarka batuko dituen zubi bat egitekotan dabiltza. Malmoe'tik Kastrup'era lijoaken zubia, ain zuzen. Ekintza au suezitarren bizkar egingo litzake. Dinamarkatarrek, beren aldetik, Kastrup'eko egazkin-zelaiaren ordezko berri ta izugarri bat eraiki nai dute Salthom'en. Eskandinabia osatzen dute lurraldeak batu ez ezik, Europa ta ludi guzirako ate zabalak lituzkete-ta.

Europa'ko 500 ekintzarik aundienen artean bost espaiñiar aurkitzen dira. Emengoekiko danetan aundiena, ala ere, 179'gn maillan agertzen da, «Vision» aldizkariak erakusten duenez.

Gizarteko arazoak

Sindikato Askeen Nazioarteko Elkarteak —CISL— bere 58'gn batzarrean «etorkizunaren aupadari» erantzun nai izan dio. Zenbait erabaki artu dituztelarik, nazioarteko ekintza-elkartasunek sindikatoeri sortarazten dizkien arazo ta buruausteak aztertu dituzte bereziki. Laterri naiz Europa maillako ez, baizik eta ludi maillako jokabide bat eskatzen diela ikusi dute. Ortarako egoki omen litzake CISL'etik alde egindako AFL-CIO iparramerikar langille-alkarteaz bakeak egin eta berriro bere altzora erakartzea. Jakiña ba'da, kapitala ta lanaren arteko oreka zintzo bat burutzea bidezko ez ezik nai ta naiezko da.

ONU ere arduratu da nazioarteko ekintza-elkartasunek sortarazten dituzten arazoetaz askotarikoak diralarik. Gizarte, ekonomi, politiku ta lege alderdieri erasaten bai'die. Aren batzordeko txosten batek baiezten duenez, ekintza zabal oien ardura ta xedeak ez dagozkio beti errieneri.

Langilleen Mutualidad'eri dagokie zarsariak ordaintzea. Espaiñia'n, bataz beste eman diran zar-sariak 23.148 laurlekotara iritxi ziran 1969'gn urtean. Aurtengoen bataz bestekoa 40.000 laurlekotara iritxiko omen da. Ez da ezer askorik, ala ere, gaur egunean bizimodua dagoen bezela egonik. Langilleek eta ekintzek gutxi ordaindu ezkero, zar-sari bikaiñik ematerik ez Mutualidad'eak, diru oien banatzaille besterik ez dalarik... Onela itzegin du erakunde ontako arduradun dan Jose Manuel Merelo Palau jaunak. Langilleekiko, gutxi ordaintzeari esker iñor aberastu izan ba'litz beiñepein...

Izen nagusiak

Sofres'ek Frantzia'n egin duen azterketa batek egiztatzen duenez, buruzagi izandako Chaban Delmas politikugizonaren ospea goraka dijoan alderantziz gaur eguneko buruzagiarena beeruntz omen. Burdeos'eko alkateak UDR alderdiaren altzoan jarraitzen du Ponpidou'z autsi ta gobernuaren buru izateari utzi zion ezkero. Orrez gaiñera legebiltzarrean alki bat ba-du. Alki orixe zaintzen bestetan ez omen da aleginduko datozen auteskundeetan. Alderdiaren arduraz saia nai ez izate orrek ez al du berekiko asmorik ba ote duen pentsarazten? Berriro ere iritxiko ote da aren ordua?

Erroma'n omenaldi bero bat egin diote Aita Raimundo Bidagor jesulagun euskoari. 52 urte egin ditu apaizgintzan dagonekoz. Eleiz-legekiko aztertzaille trebe izan da, ta irakasle agurgarria, omenaldia bere ikasleek berberek antolatu nai izan dioten ezkero. Zorionak, eta Jainkoak dagizula osasun!

Gure erriak

Gorde-janariak egiten diarduen Muskaria'ko ekintza batek 280.000 kilo perretxiku bidali ditu Alemania'ra, latontzietan sartu-rik. Mendi-goiko piñutegietan sortzen diran xixak omen ziran geienak. Pagadi ta ariztegiak len bezain ugari ba'litugu gaur egun gure basoetan, a zenbat latontzi bete litezken... Laister mendigoizaleontzako lain ere ez da sortuko. Tamalez!

Gipuzku'n ezkontzak eta jaiotzak gutxitzen ari dira. Aldapaz aspertu zirala, alegia, gure gurasoak... Aatik ba'da, lur lauak zaizkigu guri atsegin...

Gipuzku'ra datoztenak ere gutxituz dijoaz. Ainbeste sartu izan al dira!

Gipuzkuarren atzerriratzeko joerak len ainbetean jarraitzen du. Frantzia'z gaiñera, norako joerak nagusitzen ote dira?


Kultura bidetik

Txillida'ren irudia ez ezartzea erabaki du Madrid'eko udaletxeak. Astunegia omen da «eskalestrik» oietako baten azpian zintzilik ipintzeko. Egilleari berari irratiz entzuten nionez, oraindik funtsezko agerbiderik ez du jaso ango arkitektoengandik. Atzerritar erosleek arrapaztaka omen dabilzkio, baiña Txillida'k Madrid'erako sortu zuelarik, beronen eta ez besterentzat ez du esan nairik irudi orrek. Esan nai orretaz ez dira jabetzen nunbait ikusle soillek, uriburuko kaleetan egin zuten azterketaldian entzun al izan nuenez. Bere ekintza abstraktoa al zan galdetu zioten orduan ertilari berari. Txillida'k argi ta garbi aitortu zuenez berak izatearen agerpenak eman nai ditu bere irudien bitartez. Izatearen muiña noski, axala ta gaiñeko itxura izatearen atximurka bat besterik ez deritzaiolarik. Dana dala, auxe egizta al izan nuen, alegia, onezkero madrildar geienek ezagutzen dutela Txillida jauna. Txarrenean ere...

Arantzadi taldekoek beti lan eta lan, gure arbasoen aztarnak billatzeko leia jatorrez. Erritarrok ere ez diegu laguntzarik ukatzen. Oraingoan Bolibar'eko eleiz-atarian egin da billakuntza berri bat. Bertako Martinez eta Ansorena'tar Teodoro izan da billatzaillea ta Arantzadi taldearen eskuetan aurkitutako ontziak jarri nai izan dituena. Urrezko kaiku bi, ikertokian egiztatu al izan danez. HALLSTATT arokoa omen da, ots, 2700 urteko zartasuna dute. Antzeko ontzirik ez omen da aurkitu Portugal, Espaiñi'an edo Frantzia'n. Antzekoak, oraindaiñokoan, Alemania, Dinamarka ta Irlanda'n agertuak dira. Donosti'ko San Telmo ikustokian ditugu onezkero. Agurgarria benetan erri baten erroak billatzeko gogo ta leia.

Caracas'en ospatu duten batzarrean gaztelzain jaunak garbizale agertu zaizkigu. Frantzez, Ingeles eta gaiñerako erderakadetatik garbitzea eskatzen die idazleeri. Eta guk zer esan? A zer ederki egin duzuten! Ikasi nai dutenek...

PAGO ta ARITZ



(Andoni'ren argazkia)

DONOSTI

Tolosa'ko «Euskal abesti» leiaketa entzun nun irratiz lengoan, joaterik ez nun izan-eta. Lenengoz, Zorionak! Tolosa'ko «Leidor» eta Donosti'ko «Donosti Ereski» abesbatzei, «txapeldun» izan zi-ralako. Oso atseginña izan zitzaidan saioa, baiña... (oraingoan ere bai) neretzat ulerkaitza dan zerbait gertatu zan:

Euskal Abesti leiaketa batean EUSKAL ABESTIAK ez diranak abestea. Azken saio onetan, abesti bat «Negro espiritual» edo dalako oietakoa zan noski, «ingles'ez» jakiña. Baita errusitar abesti bat ere. Ondo abestuak eta politak biak, ori bai. Batzuetan «espaiñeraz» ere abesten omen dute. Guztiak «bearrezkoa» zuten abestia, bai, au euskeraz —esan bearrik ez— baiña bestela edozein izkuntzetan, itxuraz. Au arrigarria dala derizkiot, nere iritziz «Euskal Abesti» leiaketa ba'da, abesti guztiak euskeraz bear lukete. Oker al nago?

* * *

Len aitatua det noski gai au. Donosti'n, igande arratsaldetan euskal-mezik ez genula alegia. Orain ba-degula esan bear dizuet, ba. Bat besterik ez, gutxi da, baiña asiera beiñepein! «Kaputxinotan», joan zan Agorrillatik, arratsaldeko zazpitan. Ikusiko degu orain eredu oni jarraituz beste elizetan ere izaten ditugun! Ez det uste geiegi litzakenik.

* * *

Orain arte jator ari zala uste nun Donosti'ko ikastola batean, «h» zoriuntsuakin irakasten ari dirala jakin det. Au naikoa ez dala bertan ikasten ari dan nexka batek esandakoa ara emen: «Ikusi-makusi jolasean. Zer ikusi? Ikusten, ikusten GAUZA BAT ASTEN DALA... eta jolasari jarraituz, bestea, «RENDITZEN NAIZ»!

Barregarria benetan, negargarria ez ba'litz! Ez al derizkiozute? Au zuzentzen ez ba'da... Baiña ortarako GURASOAK esnatu bear! Eta askotan au eziñekoa dala esan diteke. «Beti lelo berean» esango du norbaitek agian. Egia da! Badegu bai gogoa leloa aldatzeko, baiña itxuraz... Oraindik ere geiegi bai-daude «linboan»!

Onekin gauza bat ikusi det. Donosti'n jator-jator ari dana ikastola bat besterik ez degu! Nik dakitela beiñepein. Naiago nuke norbaitek beste bat edo geiago ba-dirala agertuko ba'lit! Baiña esan bezela JATOR-JATOR!, ez erdipurdikoak!

* * *

Illaren 19'gnean, Tolosa'n «GOIZARGI»koak billera izan genun. Talde ederra bildu zan. Lenengo, Sagartzazu' tar Joseba'ren alde meza, «Sacramentino»en elizan. Ezin itzez adierazi gure biotz-ikara! Izan ere, biotza ikutzekoa izan zan elizkizun guzia!

Baiña... atsegin izan etzizaidan gauzatxo bat ikusi nun, zoritxarrez. Zoriona ezin osoa izan nunbait. Alkitan, orriak, eliz abesti orriak ziran zabalduta, ta «h»ez idatzita abesti batzuk! Elizan ere bai? Nere ustez, eliz gaietan «liturjian» autatua dago idazkera, nola diteke eliza batzuetan, «praille» batzuek «berea» egitea? Jarraitu dezadan, Tolosa'ko billera berriakin:

Ondoren, Meza ondoren alegia, billera izan genun. Nere iritziz, indarberrituta irten giñan andik. Bakoitza, bakarrik ez gabiltzala ikusteak, kemena geitzen bai-du! Euskera gaizkatzeko gogoz lanean jarraitzeko asmoa berotu zitzaigun, ezpairik gabe.

Gero, bazkaria. Alaitasun eta alkartasunez. Nere gogoa an ziran guziak ezagutzea izango zan, baiña au eziñekoa da noski. Geiegi giñan ortarako. Egun ederra igaro genun ba, eta onurakorra, nere ustez.

AMALE'K

ERRIETAKO BARRIAK

Galdakano

ENE OLDOZPENAK

Azilleko arratsalde berandua zan, orrelako egunak ez dira erraz aztuten. Etxeko oean iru aste luze samintsu igaro ondoren, Begoña'ko «Virgen Blanca» Ama-Neskuts' aren osatetxera ekarri ninduen. Enekian ziur zer egin bear eusten, baiña enintzan bildur, tamalez, orretariko ainbat joan-etorri egin bearrean aurkitu naizelako errendu ninduenetik onako amairu urte onetan. Sartu ninduen gela eder bateko oe apatz baten, eta bertan geratu nintzan urrengo egunean zer izango zanaren adi.

Biaramonean, goizeko zazpirak inguruan, ez gazte ta ez zaar adiñeko apaiz jaun bat etorri yatan, Gabeko maian AGUR eta Z-Argia ikusi ebazalako, edo bere eusko oitura bikaiña orretara dalako, «egunon» samur batekin agurtu ninduan, eta beste ainbestegaz erantzun ondoren, asi zan izketa oroikorrean: «Emen dakartsut Begoña'ko Ama'ren iruditxo bat —argazki antzera— nai ba'dozu emen zagozan artean eukiteko, baita gero etxera eroateko bere». «Bizkai'ko Ama Donea nai izango ez dot ba!, nik, bai pozik». «Orretara izanik eta Berak lagundu dagitsun otoitxu bat egingo dogu», berak. Bereala, euskerazko otoi maitekor batzun ostean gure Jauna emon eustan, eguna garbi ta itxaropentsu asiteko.

Bederatziak inguruan otsaintzako andereiño alayak goizariaz etorri ziranean, arren eskatu neutzen, sartalderantza neban leyo zabala igiri eusteela, ta a nire poza! neuk nai neban baizen ikuskizun egokiagoa neukan leyo artatik. Jaso neban burua, ta Bilbo'rik geyena ikusten neban; teilletu gaiñeetatik, eta aldamenean asi ta urrunerarte ikusten diran Arraitz, Arroletza, Apuko, Eretza ta urrunago ainbeste burdin-meatz agertutako menditarteak. Aunitz oinkada ibilliak garan mendiak. Eguna be ain argia aurkeztu zan-eta, naita abestutzeko gogorik izan ez, antziña Endaya'n Iparragirre'k abestu eban abesti oroigarria bururatu yatan: «Ara non diran mendi maiteak, ara non diran zelayak...» Ez, enebazan ikusten menditarte orreitan diran zelai mamintsuak, eta Bilbo bera zelai-une bat dan arren, etxe ta beste tresnaz estalduta aurkitzen da... «baserri eder zuri-zuriak iturri eta ibayak». Bilbo'ren sartaldera ez dago baserri eder zuririk, gure euskerea ta eusko oitura garbien kabi beti izan diran leku baketsuak. «Iturriak» ugari dira emendik ikusten ez doguzan arren, mendi orreitan eta euren aldamenetan, ur garbi lerdenak ugarian dariezela. «Ibaiak» or aurki dogu Nerbion, guretzako antziñako Ibaizabal, oetik ikusten ez ba'dogu be. Danak guretzako zoragarriak, bear ba'da, geureak diralako.

«Begoña'n nago (Endaya'n esan eban arek) zoraturikan, zabal-zabalik begiak. Ara, Euskalerri lurra lakorik, ez dago ludi guztian». Alan bearrik-edo, urrengo egunean barriz etxera itzuliteko gertuta aurkitzeko agindu eusteenean be, egun argi eguzkitsua izan genduan, barriz ondo begiratuta agurtzeko. Begoña'ko Ama Neskutsa'ren naya?

ZEREN BILLA?

Ainbesteko aldi luzean atera urten barik dagon izparlariak, ez dau erraz bere irakurleei albiste askorik emotea. Orretarako batera ta bestera ibilli ta yenteaz ar-emonak bear izaten dira. Guk beintzat, lan sakonagoak idatziteko ikasirik ez daukagunok, edo dakigun gitxia be azalduteko oraindiño, makalaldi luzearen ostean, burua erdi zorabiotuta daukagulako, ixillik egon bear izan dogu. Ara non baiña, neu billa joan barik, eskura etorri yatan bertoko eusko gurasoak jakingarri daben gai bat:

Orain egun batzuk, Azillaren azkenengo egunetan, errian ezagun ez diran gazte batzuk, eusko ikastolan dabiltzazanen gorasoekin alkar-izketak lortu gurean. Ta gure seme-alabaren etxera be jo eben. Agurtu ondoren, alabeak sartuteko barrura agindu eutsen, gu be, jakiña, etxean gengozan, ta euskeraz agurtu nebazan, baiña «perdone pero...» erderaz jarraitu eben, ikasten ibilli arren ezin ebela oindiño izketaldirik egin. «Caramba»! nik, ta ezin bestean erderaz: «ez zatoze, ba, euskereatzaz ikastolako gurasoekin itz egitera?», ta beti erderaz, «zer jakin gura dozue eusko gurasoengadik, edo zer irakatsi nai dautsazue eurori zeuok ez ba'dakizue euskeraz?» Ariñegi bota ete geuntzan geurea!

«Ba, guk, Oñatibia'ren ikasbidea, ezagutzen dozu?, eresmintzen bitartez euskerea zaletu azotea ta ikastea dira eskeintzen gatozenak». «Bai, ezagutzen dot Oñatibia'tar Jon'en ikasbidea, gipuzkoeraz eta bizkaieraz, baita Paña'tar Xabier'ena be, nire ustez errezenak eta beraz egokienak. Orretara ba'da ondo dago, baiña zuok dirauskuzuen irakaspide ori atxakitzat artuta, ez ete dozue beste zerbait geyago euskaltzaleen biotzetan sartzeko?» «Ez, guk ez darabilgu azpi-jokorik!»

«Orretara izan daitela gura neuke, baiña bildur naiz zuek letz beste taldeak be badabiltzalako, euskerea ikurrintzat artu, eusko guraso zintzoen artean nastea ta korapilloa sartu nayan. Gaiñera, eusko guraso askok, geyegik, ez dakie euskereak euskotarrentzat daukan garrantzia, izkuntza txukun onek emoten dauskun nortasuna ta abar; ez dabelako bear litzaken euskotasunik... Oneik eta onelako beste itz asko egin geuntsezan gazte orreiri, baiña guk dakigun gitxia ez zalako naikoa —edo dakigun askoa eurak igerri— ez gendun euren asmoak jakin al izan.

Eusko gurasoak! Ni baiño jakitunagoak, azkarragoak izango zare, baiña zeuon txindirik edo itz zintzorik ez-ezaguneri emon baiño len, ondo oldoztu, bear ez dan biderik artu ez daizuen.

GABON JAYAK

Urren yatorkuzan Gabon jayak, egun oroigarriak benetan kistar siñeskera dogun guztiontzat! Iñoiz baiño alkartuago senditarteko maitasunez igarotekoak! Ondo igaroten alegintzen gara, baiña geyago gogoratu bear gara, espetxeetan eta euren sendietatik urrin diranakaz. Danori Zorion ugari opa dautsuedaz.

BASA-JAUN

Arratia

Erririk-erri ta biderik-bide lorketan edo eroankarrietan berebillez dabiltzanentzat, batez bere arratiarrentzat, dei zirikitzaillea agertu neban. Au da: berebil-burdietako ateetan erderaz idatzitako «Transportes», «Acarreos», «Tfno.» ta «N.º» ta abar euskerara biurtuteko garai ta ordua dala esanez.

Arazo au pitintxu bat luzetuz, esan bearra dot, ba, Arratia ta Bizkaia bera bere ez dala nagusi ta aurrelari izango eginbear onetan. Nire begiak ikusirikoa egia ba'da beintzat, lenago bere aitatu izan neban-eta, barrien-barriz bere aitatzera emonik nator, Urreizti motrikuarra izan dala bere berebillaren ateetan euskeraz idatziriko ogibidea ta zuzenbidea egertu dauana. Beraz, dalako orretan, Gipuzkoa dogu, ba, bide urratzaille ta txapeldun.

Bigarren, eta au arrigarria. Aitor'en izkuntza guztiz eta osorik ia galdurik daukan Araba. Berebillaren ate batean eta bestean idazkun auxe darabil Gaizka nire adizkide barriak: Urdaeta'tar Gaizka; 720147 urrutizkiña; Llodio'koa.

Gaizka au euskaldun barria dogu. Nekearen nekez egiten dau dakiana, baiña euskeraz betibeti, eta iñoiz ez erderaz ezta erderanto batuan, euskaldunik ondoan izaten dauanean.

Zein izango dogu Bedia'tik Ubide'ra bitarte erdel idazkunak euskerara itzuli edo biurtu dituana? Erdiko?... Bernaola?... Sagarnatarrak?... Etorriko dan urte barrian izango dogu erantzuna.

* * *

Txikirotzaille, kapatzaille ala kapadorea? Dana dalako «hori» kapaduna da, edo izandakoa bai beintzat. Ar-emeetan ebaketa-mozketak egiten ez diardu orraitio, itzak baiña «kapatuz» daroaz. Txistua, xistu esan bearko dogu; Txomin, Xomin; txua, xua; txiki, xiki abar eta abar.

Nik neuk be, ba, zerbait egin gura-ta, emen zer egin dodan: Lenen, hatxe atxe(h) biurtu; bigarren, atxegaz atze egin, eta atzegaz atzezale, atzelari, atzebero, atzegozo ta abar egin.

Gabon-jaiak baiño len barriro alkar ikusterik izango ez ba'gendu, Zorion guztioi!

LANDAJUELA'TAR A.

Boise

Amerika aldeko Euskaldunak be badira kirol-zaleak. Azilleko 26'an, Elko'n, Nevada aldean, arri-jasotze eder bat izan zan. Emen, jokoko kirolari sendoak izan ziran: JUAN YBARLUCEA (Aulesti'ko semea) ta JUAN VICANDI (Navarniz'eko semea).

Arri orrek 114 kilo, emengo 250 libera eukazan. Sariketea zan, zeiñek jaso arria geiagotan 12 minuto barruan. Jokoa iru-lau minutoko txandetan izan zan. Au da sariketearen zenbatzea:

TXANDEA	YBARLUCEA'N JASOAK	VICANDI'N JASOAK
1	28	25
2	28	25
3	20	23
Danera:	76	73

Ikusten da Ybarlucea izan zala irabazle, baiña Vicandi'k be ez dau askogaz uts egin.

Nire aldetik eta emengo Euskaldun guztien aldetik zorion ugari emon nai dautset kirolari oneiri. Au, benetan izan da sariketa ederra.

Emengo aldetik agur danori ta zorion beroenak datozen jaietan, ta beste egun bat arte. Biotzetik.

REMENTERIA'TAR MIREN EDURNE

Arrasate

EZKONTZA

Emengo Uribarri auzoko elizan ezkondu dira Juarizti eta Kerexeta'tar Arantza neskatilla liraiña eta Zugazti eta Arbizu'tar Bingen. Arantza au Sestao'ko Ikastola baten andereiño lana egiten ari da, eta ondo eta pozik betetzen du bere-zeregiña. Urte askotarako izan zaiteztela zoriuntsu bizi-barri ortan eta izaten duzuten ondorengoak izan diteztela, gutxienez zeubek bezin euzkotar zintzoak eta artu zazue bereziki agur bero bat zeben osaba dan onengaiñdik.

ERIOTZAK

Jaunak Beraganatu du, Biteri'tar Kalare anderea Arizabaleta'tar Baurli zanaren alarguna. G. B. Atsekabian laguntzen dautset sendi guztiai, batez-ere seme Xabier eta Kontxi'ri, biok gure lagun onak.

Baita ere il da, gure lagun izan zan Leibar'dar Eulali. G. B. Une larri ontan artu beza bere emazte eta semeek samin-agurrik biotz-korrena.

AMAIA

Izen onegaz laister zabaltzekoa da antzestoki eder bat. Esaten dutenez bere askundea ospatuko da gure «Danok» abesbatzaren agerketa aundi bategaz. Ba-dakigu gauza arin samar askotxo agertuko dirala, baiña noizik bein euskal-giroko zerbaitzuk agertzen ba'dira ondo etorriak izan diteztela. Ea-ba Gallastegi'tar Mikel, zeure euskaltzaletasuna sarritan agertzen duzun.

TOLOSA'N

Elgeta'n «AGUR» ekoak egin gendun batzarra ikusita uste gendun beste olako edertasunik ikustea gaitz izango zala, baiña Tolosa'n ikusia etzan ba-pe gutxiagoa izan. Emengo gizon, emakume, gazte, zaar eta ain zaar etziran talde ederra ikusita, biotza itxaropenez beteta geratu zaizkigun. Ez-da samur ango giroa itz gutxitan agertzia, eta ori egiteko or izango dira beste batzuk gure «Goiz-Argi»n aitzen emango duenak, batasun egiazko baten barruan ikusteko eta entzutekoak ziran. Iritxi asko eta danak garrantzi aundikoak eta «Goiz-Argi»n leku emotea ba'litz gutxienez 50 orrialde biarko luke. Iritxi askoren artean bat artuko neuke bereziena; au da: Ikastola arazoa. Eta onetaz Orbegozo gazteak egin zun erakutsi aldia oso izan zan onuragarria eta aintzat artzekoa. Auxe da-ba gaur zer egiñik garrantzitsuena, bai kristau aldetik begiratuta eta bai euzkotasun aldetik. Batzar oneik oso garrantzi eta onurakorrak dira eta ziur gaude urrengo udabarrian «AGUR»ek beste olako bat eratuko digula. Aurrera danok eta geien garan ezkero, geure artean ditugu gizon eta emakume argi eta euskaltzale zintzoenak eta orregaitik itxaropen osoa dugu etorkizunari begira.

UDALAITZ

Bilbao

Unbe'ko umezurtzen alde, lenago Casilla'n izaten ziran txiki orren alde, urtero lez emen izan ditugu Polentzi Gezala, Easo donostiar abesbatza ta Lejona'ko San Juan Bautista taldea. An zan entzuleen artean Unbe'n dan gipuzkoar lekaime bat, bere aita zarraren ondoan, Ansorena txistulari ospetsuaren alabea, bere aitari laguntzen, eta bere anaia Easo'koen zuzendari barriaren eragiña ezagutzera etorrita. Ansorena izena ao guztietan ebillen; Ansorena zarra, Polentzi beraren irakasle izana; Ansorena gaztea, zuzendaritzan aurrera doana, Ansorena leikamea, umezurtzen onerako Jainkoari eskeintzen bere lana ta bizia.


Ta ain giro berezian gertatuta egoan aurtengo ekiñaldia, ezin izan bestera, iñoizkorik onena izan dogu: Polentzi, tira, olakoak milla urtetik bein-edo sortzen dira. Easo'ren bide barriak, barriak eta ederrak; San Juan Bautista'tarrak, zeiñek esango, beste bion ekiñaldiaren ondoan ez zan atzean geratu, danak mailla baten jarri bear, eta entzun ez dautsenak ez dakie zelako abesbatz gozoa ta osotoa lortu daben.

Ez goaz, abestirik bereiztera, danak ederrak eta ondo be ondo, osotuak. Batek egin euskun, edo obeto esateko bik, biotzean alako ukutu indartsua, larregikoa bear ba'da, gurea lako biotz biguna-rentzat: Polentzi'k jo eban Ansorena'renak, eta Madina zanaren Aita-Gurea'k.

Ta azkenean, aur a Iñaki bieri ta Polentzi'ri deika, ta entzun-gailluan etorran aurraren negarra, ezinbestekoak izan ziran.

Bigunkeriz diardudala; ez diñotela ezer eresietzaz. Urrengoan etorri zeu, nik, gaur, entzunakin eta ikusiakin erdi-amesetan daukat nere soin guztia.

IBUR



Gozari ta azkariak

Ascao, 12 - 24 90 89 Urrtz.

BILBAO

GAZTETXOAK GALDUAZ?

Urtetik urtera somau dot gure errietako euskaldun gaztetxoak, bai mutil baita neskatoak ere, kristautasun arazoetan beerakada aundia egin dabela. Lenago, begi argi ta garbiakaz begiratuten eutsoen abadeari. Baiña, orain, begi zital-illunakaz.

Lenago izketa garbidunak, orain azalean ta ixillean itz loi ta lizun asko darabillez. Lenago pozik joaten ziran eleizkizunetara, orain bapez edo marmarka. Ona zer jazo zan gaztetxoen ibillaldi batean: urtero egiten zan erri askotako gaztetxoakaz ibillaldi ori. Bi edo iru egunekoa. Ta egun orreitatik batean mezea esaten zan Jaunari eskerrak emoteko, ta kristau ibillaldi baten agiritzat. Eta urte batetik bestera zelako aldakuntzea neska-mutil nagusitxoetan! Mezea iragartean aldra batek, lotsabaga, iñoan: «Mezea zertarako da?» Ta, esan eta egin; besteak mezan egozan artean, eurak eleizatik kanpora jolasean. Nork eroan ditu bide galgarri orretara?

Ba-ditugu tamalez ortik zear ixil-ixillean umeen artean euren guzurrezko eztena sarturik, umeen biotzak Jaunagandik urrunduten alegintzen diranak. Orain askok diñotse eleizan lozorrotu egiten dirala. Lenengo ta bein, gizartesozial arazoetan ezi bear dirala. Geldigeldi ta astiro irakatsi bear ei yake salbaziñoko irakatsia. Ta, zer esan be ez, bitartean umeak Jaungoikoatzaz gutxi edo ezer ez entzuteagaz, azi, ta eleizatik betiko urrunduten dira.

Lenago, gurasoai ta nagusiagoai itzal eta errespetua eutseen neska-mutiltxoak, baiña, orain, azke-libre dirala ta gurasoenak ez dirala, erriarenak baiño esan dautsee sasi-maixu batzuk. Eta orregaitik erantzun gogorrak ditue guraso, eleiz-gizon eta nagusiagoentzat. Zer jazo da gure Euskalerrian?

Otsoren batzuk ez ete dira euskal gazte ta gaztetxoen artaldean ardi-narruz jantzirik sartu? Eurak ere bateatutakoak izanik ta gauzak zuzendu nai dituela esanda, gure izate garbi Jaungoikozalea ta alaia buruz-bera ipinten dabiz. Aurrerakuntza ta jakituriaren izenean. Dana birrindutea erreza da, baiña daroen bidetik Euskalerri oba bat egitea ez da ain erreza izango.

Guraso, eleiz-gizon, irakasle ta enparau guztiok, alegindu bear gara erri jakitun eta sozial bat egiten, baiña kristau gareanok ezin geinke gure erri au Kristo'gandik urrindu, ordez, beste jakitun siñisgabe batzuk mitotzat ipintеko. Kristo'gaz egin geinke erri alai, gizarteko ta maitakor bat. Berak maite ditualako gizonak geien, baita Berak iñork baiño geiago lagundu dautselako, ta gizonen benetako zerbitzaria izan dalako.

Kristo barik, ostera, erri tamal ta gogor bat sortuko dogu, gizonak, Jainko barik benetako maitaillea izaten ez dakialako. Betor iraultza, baiña benetako maitasun eta garbitasunagaz. Ez gorroto ta amorruagaz. Or dabiltz batzuk eleizaren utsak astintzen, eleizaren akatsak aizeratzen. Oreik gazteai ta umeai batez ere kalte aundia egiten dautsee.

Umeak gauza bigunak dira ta eurekaz kontu andiagaz ibilli bear gara, gure jatortasuna, betiko euren biotzetan aldendu ez daiten. Español'ko nobela-idazle batek au diño: «Ez itandu txakurrai ardiak zelako usaiña daben, ba, ats txar-txarra dabela erantzungo dautsue. Ta zergaitik ori? Txakurrak ardiai beti atzeko aldean usain egiten dautso. Ta, jakiña, ats iguingarria somau bear». Ori ber-berori jazoten da orain Eleizeagaz. Askok eta askok atzeko aldetik, akatsen aldetik bakarrik begiratzen dautsoe, utsunak eta akatsak bakarrik ikusten dituelako.

Ba-ditu Eleizeak irakatsi ezin ederragoak. Gu ere eleiza gara ta, txarrak alde batera itxita, beragandik artu daiguzan gauza onak. Or lan egin, or jorratu, ori zabaldu ta gazteak eta batez ere umetxoak, ez dira salbagille dan eleizatik aldenduko.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

BATZAR NAGUSI BAT

Nagusia diot, eta ezin dezaket besterik esan. Eta, agian, motx gelditzen naiz. Azilla'ren emeritzian Tolosa'n egin zan Batzarra, uste dut nik, euskera arloan, guda ezkeroz ez duala antzekorik izan.

«*Goiz-Argi*» aldizkariaren deiari on-iritzia emanik, gaur-egun Euskalerria'k dituan idazlerik bikaiñenak antxen bildu ziren. A zer nolako askatasuna egon zen nork bere iritziak argitara azaltzeko!

A zer nolako itzala edo errespetoa, eta besteengandik ikas-naia egon zen batzarkideen artean! Antxen zeuden, ain ziur, gaur euskera arloan, berriketa demagojiko askorik gabe, euskera ongi maiteaz gaiñera, ongien ezagutzen dutenak ere.

Aiek txaloak, batzuei! Zoragarriak, noski. Baiñan ura ere ixiltasuna itzlariak mintzo ziranean! Nork onelako garrik, nork onelako surik agertu du gure izkuntz zorigabe bestez maite ta zogarria aurrera eraman aal izateko?

Eta ez zen ziñik edo juramenturik egin bearrik, ez zen berriketarik izan. Ez zen talderik izan. Euskera, euskera, euskaldun guztion euskera zen mintzabide.

«*GOIZ-ARGI*»*ren* batzar orrek, kezkarik ez izan, guda eskeroz garrantzitsuena izan da, bai idazle sortari buruz, bai erabilli izan zen gaiari buruz.

A! erderanto zalaparta txoruen eragilleak bertan izan ba'lira, alkarrizketa zer den jakiteko. A! etorri izan ba'lira euskerari zor zaion maitasun garbia ikusi aal izateko! Ai! biolojia aitzaki arturik burruka sortu, edo txoroz sutu, egin dutenak, zaar eta gazteen alkartasun egizko ura nabaitu izan ba'zuten!

Baiñan ez! Ortografi praktikoa nai dugunetik at dabiltzanak ez ziren antxen, eta ez dute ere egin naiko ameto. Dijoazela abereen kalabera adoratzailleen erreka arre ortatik aurrera! Bide zabala eman diote, noski, karramarruaren jokabideari! A! zer nolako olarruak legatz jantzian!

Guk, erri euskera bidean jarraitu nai dugu. Atozte guregana asaba zaarren euskera leial ura maite duzutenok. Dijoaztela nai dutenak, zientifikoki, klarki, erderantoki eta laboratorioki euskera kamuflatuaz, erderara eraman nai gaituztenak.

Guk, geren indarrak neurtu ditugu. Ken, beraz, kamuflajea izatera irixten ez diren mugimendu txatxalak. Gora euskera! eta trakillonen, trikulutrakuluen beldurrik gabe, aurrera! Bide zaar jatorretik aurrera! Eta gure gazteak gurekin!

Eta ar dezatela onekin, Bizkai errietatik etorri ziren AGUR'eko idazle jatorrek, ez gure eskerra anai zintzo geralako, bai ordea aspaldi ikusi gabeko (Elgeta'n azkenekoz, eta bai luze) odolkidei ematen zaion laztan gartsuena.

Bizkaitarrok, naparrok, arabar eta gipuzkoarrok bat! Eta errespeto itzal bat beste gure anaiei! Bai! Bai!

Baiñan euskaldun guztion euskera aurretik.

«*Goiz-Argi*»*ren* suari, zorionaren aize! Jarraitu.

OLAZABAL'TAR XABIER

G I D A R I

Bidea ta sasia banatuko neukez gaurko arazo ontan. Gizon guztia argi billa dabil, baiña alegin onek egikeran, gizonak sasira be jausten dira ta an dabiltzaz, gero, lar artean nastauta, bidea ta argia baiño otarteko matazea naiago dabela. Ortik, negarrik aski datorkio gizadi oneri. Illuna ta sasia izan be, iñoz ez dira izan onulari bikain.

Era ontako lagunak ez dabe sortzen aldrarik nagusiena munduan. Ori olan izatera, gizadi tristea arrak jota egongo litzake bere barne-muiñean. Aurrerapiderik iñundik iñora ez litzake izango. Ta gure bizi egarria, aurrera egitea izanik, sasiaren nastean ta gogorkeriaren illunpean egotea, ez il eta ez bizi, gure izatearen aurka jokatzea da. Ta indar gaizto orrek be ba-ditu, zoritxarrez, gizadiak.

Bururik nai ez dabenak dira onek. Jakiña ba, zuzentzaillea txartzat, zapaltzailletzat artzen dabe. Egi ta zuzentasun bage jokatu ezkero, taju ortara goaz. Gidari txarra ba'da, berez, agintzeko eskubiderik ez dauka. Ta olakoak ikusirik, munduan ba-dira agintaritza bera kendu nai dabenak. Baiña jokabide au gure izate ta bear izanaren aurka doa. Gure bizitzak alkartasuna bear dau, lagun arteko arazo, bear izan ta aurrerapideak gizartearen onerako zuzendu al izateko.

Gizadiko alderdi geienak zuzendaria ontzat artzen dau. Ta guztiok nai dogu, zuzendaritza ori gizartearentzat ongarri izan dedilla. Ori dagokio ba, izatez, nagusiari; argitasuna ta zuzentasuna. Ta orren bidez gizonaren ona billatu. Era ortan, garbi-garbi jokatu ezkero, estimagarri izango litzake zuzenbidezko gizona.

Agintaria ontzat artzen daben gizonak, guztiak ez dabe bardin ikusten, ez era berean pentsetan ta ez ditue nai jokabide bardiñak. Lagun asko ta eretxi asko. Emen, gizonaren laburtasuna, argi ta gogor agertzen da. Bear ba'da, au ez da izango gizonen gora-bera bakarra. Onen inguru, gogo txarra izan daiteke, ta orduan, mundua, ondo, ibiltea gaitz da.

Gizategi onen barruan, askok, oraingo lurrari begira bakarrik, jokatzen dabe; beste askok bizitza ontan geroko bizitzaren itxaropenez diardue. Ori dala-ta, gizonen jokabidea, barru barrutik, banatuta dago. Baiña era bitako gizonak egizko zintzotasunez jokatu dabenean, gauza askotan alkarrekin bat datoz. Gizona otseintzea da izan be, gizonen ta agintarien bearra. Gizonaren elburua, oso osoan artu ta egiz, aurrera daroenak, orreik dira gizon ta nausi bidezkoenak, bizitzako bear izanei ta gure izateari erantzuten dakienak.

Bizitza oni buruz, askok emengo gizon ospetsuak aukeratu ditue salbagille bezela. Bizitza ontarako ogia eskeiñi dautsenak, nai iñoren edozelako menpetasunetik aterako dituelaren itza emon dautsenak. Olako gizonak ba-dira odola emonaz, erriaren alde il direnak. Onen artean ba-dira gizon zintzoak, egiz jokatu dabenak, ta izate guztia on egitearen odol artean ixuri ebenak.

Baiña ori ta guzti be, galdera bat geratzen da. Neke, ardura ta odol ixurtze orrek naiko ete dira gizon osoaren bizi ta barru eskabideei erantzuteko? Lur-zale bakarrik direnak, emen, geratzen dira, ta gizonak ori lortuarren, antziz eta negarrez jarraitzen dabe.

Gizonak beste salbagille bat bear dau. Bizitza onetako ogi ta eskubideak lortzen lagunduko dautsona. Maitasunez martiri illa. Erriaren alde bizia emon ebana, baiña, betirako ilda geratu etzana. Berbiztu zana. Gizonak illik, eta gero, bizirik ikusi ebena. Onen irakatsia bear dau gizadiak; ixiltsu baiña gogorki, barruan ots egingo dabena ta guztien erantzupenari argiaren argiz zirt ta zart eragingo dautsona. Ori da KRISTO gidari.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

«OBEDIENT HOIEK»

Azken artikuloan ikusi genuen bezela, Arantzazu'ko erabakiak ez zuten ezer agintzen: «Euskaltzaindiak begi onez ikusiko lukeala h'a erabiltzea», berdin izango litzake «Alkateak begi onez ikusiko lukela jende guztia futbolera joatea». Ez digu ezer agintzen, indargabeko erabakia da. Bakoitzak nai duena egingo du.

Zergaitik esan da «Euskaltzaindia'ren erabakiak betetzeko h'a erabilli bear degula?» Gure artean obedienteen mota berri bat sortu da: agindurik gabe obeditzen dutenak. Noren agiduak obeditzen dituzte, ba?

Arantzazu'ko indargabeko erabakiak azalduz geroz «obedient hauk» h'a erabiltzea zin egin zuten: «H; idazterakoan beharrezkoak izanen zaikie euskaldun guziei, baina bakarrik aurretik kontsonanterik ez dagonean. Gaizki eskribaturik gertatuko dira beraz: ekharri, athea, ephea, alhaba, unhatu, erhia eta urrhea; eta ondo, berriz: haragia, behar, auhena eta abar. 6. Hemen artutako erabakiak beteko ditugula zin egiten dugu, geure ohoreagatik. Bayona'n, 1970'garreneko Bazkoa-igandean. Eibar'en, 1970'gerreneko lehen maiatzean, Bayona'ko zina ta mezua. (Batasunaren Kutxa, 19 eta 14'gn orrialdean)».

Alde batetik, Euskaltzaindia Arantzazu'n 1968'gn urtean bildu zan; eta bestetik, «Euskal Idazleen Elkartea» Bayona'n eta Eibar'en 1970'gn urtean. (33 lagun ziren; beren arteko bat Euskaltzaindia'ren Idazkaria). «Horrek» esaten oi dit: Ni ez naiz atxezalea baina Akademiaren erabakiak obeitzeko erabiltzen dut». Liburu ori, Batasunaren Kutxa, irakurri ezkero nork usteko du?

Gaiñera, Bayona ta Eibar'en bildu ziranen arrokeria neurrigabekoa da. Nork eman die euskaldun guziei agintzeko eskubidea? Beste gauza izango litzake: «idazterakoan beharrezkoak izanen zaizkie alkar zin egin dutenei», *esan ba'lu.*

Arantzazu'n gauzak gaizki atera zitzeizkien. Talde onen naia ez zan lortu. Orduan «obedient hoiek», Akademiaren atzetik, beren bidetik jarraitzea zin egin zuten. Auek al dira Euskaltzaindia'ren erabakia obeditzen dutenak?

Geiago da: Beren ortografia berria Akademian sartu dute beren kargoetatik balioz.

Nola daude gauzak? 1. Akademia'k ez du bere ortografia aldatu Arantzazu'n. 2. Orduan, akta ta dokumentu guztietan lengo ortografia erabilli bear da. 3. «Euskal Idazleen Alkartea»ren erabakiak bere lagunentzat bakarrik indarra dute, ez besteentzat.

Bayona ta Eibar'en bildu ziranak, beren idaz-lanetan taldearen ortografiaz idatzi bear dute, zin egin dutelako.

«Obedient hoien» batzuek Akademia'ren barruan daude Idazkaritzaren kargoetan eta akta, ageri ta deiak beren taldearen ortografiaz idazten dituzte. Non dago obedientzia, «obeditzeko birtutea»? «Kinta koluna» iruditzen zait.

ESTORNES ETA LASA'TAR JOSEBA

AGUR

III URTEA
68 ZENBAKIA

ASTEROKOA
1972 - LOTAZILLA - 30

SALNEURRIA
5 LAUERLEKO ALEA

urte-zarra

1972'ko urtea amaitu jaku. Urte onetan egun asko urduri igaro doguz, gitxi baketsu ta bare.

Barri onen batzuk ekarri dauskuz; esaterako, Vietnam'go guda gogaikarriaren azkenera urreratzea. Baiña baita barri mingarriak be, batez be gure Erriaren muga barruan. Gogoratu dagiguzan aurten joan jakuzan anaiak, batez be gazteak. Urte onetan, barriz, iñoz baiño ugariago, gudaldia amaitu zan ezkero.

Ezin aztu urte amaitukeran, gure ikastoletan izan diran etxe-barruko ezdabaidak eta goraberak eta sekulako burrukak. Samingarri da anai arteko burruka au, baiña Erriaren bizitasunaren ezaugarri bat dala be ez dagigun aztu.

Urte onetan Erri-kontzientziak aurrerapen agiriak egin ditu, eta au benetan pozgarria da. Ez gara igarleak. Ez dakigu gero baten noraiño elduko garan. Baiña jarraitu egin bear, urte bakotxa mailla bat gorago igotea izan daiten.

* * *

Eta gure AGUR oneri begira be, urte zarra urte pozgarria dogu. Arduradunak amaika ixilleko estualdi izan dabe eta dabe, amaika lanaldi gogor be bai. Baiña AGUR asteroko egin jaku urte zarrean eta aurrera joaku. Idaz-lanak geroago ta ugariago ta sakonagoak datoz. Idazle barriak be baten batzuk agertzen jakuz... Eta bera AGUR geroago ta garbiagoa ta ederragoa agertzen da.

Urte au amaitukeran, idazleai ta laguntzaille guztiai gure esker ona agertzea gauza egokia da.

* * *

Aztertze sakon bat egitea, urtea amaitzean, guztiontzat egokia izango da.

Zer egin dogu, irakurle, urte onetan Erriaren alde? Sekulako bear-izanean aurkitzen da gure Erria: arerio asko, indarkeri sendoa, barri-bideak aurka... Urte onetan guztion laguntza bear izan dau.

Gure Erriaren bizia agertzeko bide bat euskerea dogu. Zer egin dogu gure erri txikietan eta uri nagusian euskereari eusteko? Bear ba'da geure erruz atzera egingo eban izkuntzeak: irakatsi al izan eta egin ez dogulako, erdera larregi egin dogulako...

Zenbat batzarretan egon gara gai oneik erabilli diranean? Errezago iztea izaten da, batzarrak egitea denporea galtzea dala esanaz, baiña lana egiteko alkartu egin bear izaten da. Sarritan batek ikusi ezin dauan bidea askoren artean aurkitzen da. Nekatu barik aurrera jo bear dogu beti.

Zenbat diru emon edo eralgi dozu euskerearen edo Erriaren alde? Gizonaren bigarren biotza ei da diru-sakela. Baiña biotz ori geure naikerietarako errezago zabaltzen dogu Erri-arazoetan laguntza izateko baiño:

Zenbat irakurri ta idatzi dozu urte onetan? Alperkeriak azpiratzen gaitu eta egin al doguna be ez dogu egiten. Nagikeria itzi dagigun eta besteen lanak aztertu ondoren geureak be egin dagiguzan. Ba doguz aldizkariak eta idazteko ta irakurteko eginbearra da gurea.

Begiratu dagigun ba, urte zar au aurrez, egin dagigun bearrezko dogun aztertze au, eta okerrak zuzenduaz bide artes batetik aurrera jarraitu dagigun.

AGUR



Barriz eta barriz, bizitzearen barrizte!

Atzeratuentzat Irabazbidea

Orain zazpiren bat illabete, mutil atzeratuen lanbiderako lenengo langintza ola irazi zan emen Bilbo'n. Benetako jarraibidea ebalako, barri au alderdi guztietara zabaldu eben. Bilbo-Zorrotza'ko Udal-arategian, 50 gogo-atzeratuak txarri okelaren gertaerak apaintzeko lanean dabiltz. Langintza onen onura irabazkiak salerosketa andikoak dira.

Eskutitz ugari artzen dau Langintzak. Bizkaia bertatik 6.000 eskari dagie or atzeratuak lekuratzeko. Eta beste lurraldeetatik zenbat eskari eltzen dirala uste dozue? Arritu zaiteze, gitxienez 330.000. Etenbako naspilla sortzeko aiña eskaera izan dira.

España'ko sendietatik erdiak baiño geiagok, seme atzeraturen bat onenganatzea gura leukee. Baiña agiri danez, ezin dabe geiagorik artu oraingoz beintzat. Sarritan, dirua eskeiñiz egiten dira eskariak.

Eta ez uste izan, Langintza onek ez dautsela mutil langille orrei ezer ordaintzen, naita oneik atzeratuak izan. Bataz beste, ta zein lanetan diarduen, 3.500 lauerleko, 5.500, baita geiagokoak be ba-dira aloberak. Gizarte-babeskariak «Seguridad Social»ekoak nuertuten ditu, ta edozein langitza lez, lan-arauak jarraitu bearrean da.

Eta ainbeste eskari datorrela, zer egin? Oraingoan, 1.500 eska-eskutitzeri, eldu diran arauz, jaramon egin, eta baieztu dabez. Lenengo Bizkai'koak eta Euskalerritik datozenak onartuaz. Gobernuko Lan-ordezkaritzatik, Gitxiagotuen Legeari (Ley de Minusválidos) itxoiten dagoz, Langitzaren zabalpena egiteko.

Zenbat atzeratu edo gogo-osotugabe ete dagoz España osoan? Goikoak diñoenez 660.000'tik gora. Orregaitik zabalkundea, ta España'ko eskualde danetan ipiñi gura dabez. Ori ta, basetxe-granjak ipinteko gogoketetan dagoz, oneik be atzeratuen lanerako. Jakiña, au egiteko dirutza andia ta Lan-ministrukuntzaren laguntza bearko dira.

Nortzuk izango ete dira Bilbo'ko Langitza andi onetan, bearrean diarduen eta urrengo asiko diran atzeratuen arduradunak? Orretarako beste asmo bat daukee, etxe, jantoki, eroate-ekarketarakoak sortzea. Aurre-kontu dirutzea, diñoenez, 180 milloi laurlekotik gora izan bearko dau. Mutillak ondo, egoki begiratu ta zaindurik egongo dira. Baita Langitzan bertan lan-ogibidea irakatsi ta irakatsiko dautseen aolkari, irakasle, ta oarkariak bideratu ta eraenduko dabez. Eta orreik zintzo ta poz-pozik.

Lanera, nabarmenezko eran barruratzen dira, baita irabazki etekiñak erakusmen guztiz ederragaz osotu be. Eurak, euren jardunketan, gu baiño obeak dira, eginbearra betetzea baiño beste gogamenik ez daukielako. Eta beste onetan be aztergarri agertzen yakuz: aizto, aizkora ta beste onelako burdun-tresnekin, orain arte ez dabe miñik artu, ezta zauri txikienik egin be. Ori zelan eta zergaitik? Ez dabelako beste ezertaratzen euren almen eta gogoa.

Bateren batek itaundu legike: Langintza orren irabazi ta onurak norentzat dira? Irakurleok jakin begie, aberatspidezko elbururik ez daukala Lantegiak. Bere asmo eginkizunak urrun dagoz gogamen orretatik. Orko irabazi banakizunak ez dira banatuten, eta bertako lagunartean gitxienez %51 atzeratuak eurak izan bear dabe. Geigao, naiko zabalpen lortuta gero, Bizkaia izango da orren jabe.

Gero, Langitza bertako arduradunak eta langilleak ordainduko dira, baiña banakizunik baga. Jakiña, atzeratu gixajoak ezin izan aginpiderik, ta eurentzako zorionez, ez dabe izango orretan atsekaberik ezta artega aldirik be.

Ixilpean iraun gura dauan euskaldun batek, emoitza andi bat egin dautso Langintza oneri. Milla milloi laurlekora urreratzen dala diñoe. Langintzaren erderazko izena; «Productos Cárnicos los Subnormales» aldatu gura ei-dabe.

Barriro diñot, sekulako eginzunik onena Euskalerrian dogu. 50 mutil atzeratuak osotzen dabe langitza au. Laster 1.500 izango dira. Ta gero, aurki, ugari, gaurko gizarte onetan bizibide soil ta nortasun egokia aurkituko dabezan atzeratu, gogo-osotasun gitxidunak.

LETONA

Arantzazu'ra Begira

Zuk zer dezu Arantzazu:
amets kabi, otoitz leku.

Ederrak benetan Salbatore Mitxelena'ren bertsoak: «amets kabi, otoitz leku; pake toki, gorde leku aldi baten gulako orduko gazte ameslarientzat. Ez gendun, ez, orain 18 urte, euskaldunen arteko griñarik, ez asarrerik, ez ikusi eziñik ezagutzen. Ez gendun, ez, oraindik, erdibitzailleen amurik iruntsi, eta Arantzazu izaten gendun, ekaitza etorranean, kairik egokiena. Ango prailleak, gure biotzak lasaitzeko lagunik maitekorrenak. An egin genduzan adiskiderik onenetarikoak, iñoiz ez ditut aztuko orduko lagun zarrak. Baiña mundua olakoxea da; gaur, ez genduke izango Arantzazu'n ain arrera onik. Orduko nere lagunak itxi eben batzuk, oi dan bezela, San Prantzisko'ren jantzia. Urrutira joan zan nere lagunik onena, nere iritziaren aurka, baiña, gaur aitortu bear dot, bera lakoak dirala Arantzazu'ko gogoaren euslerik sendoenak, gure eztabaidetatik urrun bizi diranak.

Beste batzuk, Euskal-Errian gorrotoa zabaldu dabenen itxas-ekaitzdun olatoen artean dabiltza... ta ni, noiz iruntsiko txalupa koskortxo baten antzera ikusten nabe. Zergaitik eta zelan, baiña? GOIZ-ARGI'koen batzarrean Garate Aitak esan eustanez, orreitariko batzuentzat «txerren kumea» antzekoa ei naiz. Orain, gure egutegiaren barriak dirala, «txerren» oneri dozenerdi atz luzatu jako isatsa... baiña, adiskideok, lengoa nozue ni, ta zuek ez zaree, danok beintzat, ain gazteak!

Garai aretan ezagutu nitun, gaur «euskerantoari amen» esaten dautsen asko. Garai aretako adiskea da Motriko'ko Andonegi' tar Ziriako lagun jatorra. «Aitorren izkuntz zarra» bertso sorta ederraren egillea. Zenbat ordu igaro genduzan, arnasagarri ziran alkar-izketa luze ta eraginkorretan. Baiña, zelan asi zan ez dakigun, edo ba-dakigun, burrukea sortu zan: «Burruka oillar» bezela, alkar oraturik, len fazistatzat geunkezan euskalzaleen (?) jokora jausi gara. Ez gendun orduan «magnetofonorik» izaten, bestela gaur euskotarrak ostikopetzen alegintzen diran batzuk, uzkia agirian dirala ipiñiko gendukez.

Baiña olantxe da mundua. Eta barriro Andonegi'kin jardunean: Zelan arraio esan leikek euskalalfabetatze orri buruz, «Zer aukera ederra, euskera batuan mintzatzen, irakurtzen eta idazten ikasi nai duten guztientzat» eta gero, «Euskera bai, euskera asko entzuten da gure errian, baiña euskera mordoilloa, euskera erderatua». Ez jakiat, Ziriako, Arantzazu'ko amets ederretan nagokan ala ez. Motriku'n, «alfabetatze kanpaina» orreik Bizkai aldekoen antzekoak ba-dituk, i ni baiño ameslariagoa aiz duda barik: Mordoilloa, erderantoa ta atxekeria, bat dituk naizta «erdibide» zale batzuk ori ukatu! Ta ik idazten duan aldizkarian, iru edo lauk izan ezik, ikurtxo ori onartu juek. Zergaitik?

Dana dala, gaur, taktikan aldaketa bat ikusten juagu. Gogorregi asi zituan. Errizaletasuna zapalduta egoalakoan, ariñegi; gure arteko itsu ta gor guztiak bide-laguntzat artu jituezan... baiña, ez giñuazan danok bardiñak! Zorionez, gaur, leninismoaren sator orreik ezin jok edonun «lur-zulatzeko» erarik aurkitu al izan; adibidez, ikastola askotan, guraso taldeen artean. Zer egin jok orain? Jokoa aldatu: Siñismena ta errizaletasuna agirian ukatu bearrean, alde batere utzi, oraingoz beintzat... baiña azpijanaren ikurra dokan «h» ori, ta euskerearen eriotza laburtzeko litzakekan sasi-osakaia, euskerantoa, bigun, gozo, biur, danean sartu, batez be, ikastola batzuetan. Ez ei-dituk danok bardiñak? Zergaitik ez juek alboratzen orduan, banatzaille dan bitxi ori? Kendu ta kito; danok lagun eta euskerea irabazle!

Baiña ez, ez jagok olakorik. Gauza oneik ez ditukala egiak? Urte bi edo iruko epea eskatuko neukik. Ordurako ipurdi-agirian izango dituk, baita itsuentzat be, ukatzaille geienak; eleizatik urruti samar, gaur barrutik eta azpitik fedeari sua emoteko asmotan jabiltzan eleiz-gizon biurriok. Ez duala olakorik siñisten? Olakoak esateko zergaitik asi ete nokan Arantzazu'ra begira? Ara, sarri idatzi jituat nire arrazoi bizienetariko bi. Lenengoa, Garitonandia'tar Gotzon zanari «buru» zan batek esandakoa, «H'a, gaur gure baza politiko bat da ta jokatu egin bear dogu». «Buru» ori praillekumea, Arantzazu'n izandakoa zuan.

Bigarrena: «Arenaza burrukalaria da, baiña «bla, bla, bla» (emen iru talde politikoen izenak) alkartu gara ta h'ak iruntsi bearko ditu». Au esan juan gizonak, ezertariko federik ez jaukala sarri aitortu arren, gaur Arantzazu'n arrera ona izaten jok eta sarri ikusten dok an. Orregaitik esan juat, ez juadala uste Arantzazu'n gaur, abesti eder areik entzuten genduazan aldiko girorik izango jeukagunik. Bear ba'dok, ango arriarte ederra «Museo del pueblo» dalako zerbait egin nai izango jeuskuek norbaitzuk. Guk baiña, gaurko ostikopetuok, lengo ta betiko Euskalerriarentzat otoitz leku ta amets kabi izaten jarrai jagian alegiñak egingo jituagu. Ea, ba, nork irabazten jokan norgeiagoko au.

ARENAZA'TAR JOSU

EUSKERA

Batzar Gogoangarria II

Orain 50 urte

Lenengo idazlanean ikusi gendun zelango girotan egin zan, 1922'gnean, Xabier deunaren egunean Bilbo'n, euskelzaleen batzarra. Giro bero sutsua ordukoa. Baiña batzar ori eratu ebenen berotasuna ez ebillen itsurik. Euskeraren gatxak ikusi ta osatzeko ez euken areik gaurko maixu-usteko askok baiño argitasun eta zentzun gitxiagorik. Ez ziran Ukronia'n ez Utopia'n bizi, euren oiñen eta lurraren gaiñean baiño, ta orregaitik, iñongo ez iñozko ukroniarrai baimenik ez argirik eskatu barik jo eben bide onera.

Ez ziran batu iñori miñik emoteko be, ez gure gatxen errurik iñori ezarteko, ez zarren eta gazteen artean eztabaidarik ez alkar ikusi-eziñik sortzeko. «Auxeda gure egoera —esan eben—, ez da ona, ez da pozgarria; okerra da. Zuzendu daigun, obetu daigun. Zerbait egin bearra dago, eta geuk egin bear dogu. Geuk egingo ez doguna ez dausku beste iñok egingo. Asi gaitezen zerbait egiten, eldu daiogun lanari, eta jokatu dagigun zintzo, jator eta garbi».

Elburu on ori gogoan ebela egin eben batzarreko lana. An agertu ziran asmoak eta erakutsi ziran bideak, an artu ziran erabagiak, artikulutxo baten zeatz azaltzekoak ez dira; naita laburkera bat egin bearrean gagoz. Batzar atako gizonen eretxian, arlo ikaragarria egoan euskalzaleen aurrean guztien alegiñak eskatzen, euskereari bizirik eta indarrik emongo ba'jakon. Eta egitekorik andienetara, noraezeko ta bearrezkoenetara zuzendu ebezan begiak. Zer egin asko aurkitu eben errietan, kalean, etxeetan, eskoletan, batzokietan, eleizetan, aldizkarietan egiteko, bai berbaz eta bai liburu idatzien bitartez. Emon daigun zerbaiten barri:

Zer egin errietan? Ez zan egoera bardiña erri guztietakoa. «Batzuk euskeldun utsak dira; beste batzuk, euskeldun eta erdeldun, naste; beste batzuetan ez dago bertako euskeldunik, dagozanak beste errireu baten jaioak dira.

Euskeldun utsak diran errietan, euskereari lenengo maillak emon bear jakoz; an dagoanak eta ara doanak ez begie euskera besterik erabilli; auzoikastolik ba'da, an euskerea eta euzkeraz irakatsiko da; eta besteko eskolarik ba'da be, euretan euskerea sartzeko bideak lortu bear dira; teatro-lanen bitartez, itzaldien bitartez, eta olan, euskeldun utsak diranak euskelzaletu beitez, eta euskelzale iraunazo bekie. Ikastoletan bakarrik ez, erriko batzokietan be Euskelerria zer izan dan eta zer dan irakasteko eskolak sortuko dira, euskerea bera irakastea aiztu barik.

Euskeldun erdeldun diran errietan, euskereak ez dau iñolaz erderaren atzetik ez azpitik agertu bearko. Batzarrak eta jaietako itzaldiak geienak euskeraz izan daitezala, eta euskerazkoak ez daitezala izan beragoko maillakoak. Besterik ezean, erri-ikastolak edo udal-ikastolak sortu beitez, eta euretan al dan guztia euskeraz irakatsi.

Euskerea kalean eta etxean. Non nai, leku guztietan erakutsiko dau euskeldun bakotxak bere euskeltasuna. Etxean gurasoak izan bear dabe emeai onetan ikasbidea emoteko ardurea. Euskeldunak beti ta edonon euskera egingo dabe, bape lotsa barik, eta danak entzuteko eran: Ia Bilbao ta orretaiko erriak euskel-usaiñez betetan doguzan».

Bilbo'n da batzarra, eta Bizkaia dauke, batez be, asmotan: «Euskerea biztu, indartu ta zabaltzeko alegin guztiak Bilbao'n bertan izan bear dira eta Bilbao'koen artian. Alperrik izango da edo beintzat alegin geiena galduten da, zeregin ori alderdi guztietara zabaldu ezkero. Bidia Bilbao'k erakutsi biar dau. Eta an euskeldun utsentzako batzoki bat sortu bearko litzake, euskeldunak euskal-girorik osoena izan dagien. Osterantzean, Bilbao'n dauke gure erri erdeldunak eredua. Bilbao'k be ba-dauko bat eta areitan ez dago euskel-ikastolarik sortu eziñik, umeentzako erriko agintariak sortu ta ordaindurik. Batzokiak euren kontura bardin egingo dabe. Olako errietan gurasoak ardurarik zoliena bearko dabe izan umeak kaleko erdel-girotik zaintzen. Euskeldunak nortzuk diran jakiteko eta alkar ezagutzeko beiñolako euskal-orratzen oiturea berbiztutea ez legoke txarto.

Eskolekin zer egin? Or dagoz Bizkaia'n auzoikastolak, Bizkai'ko Diputaziñoak sorturik. Orreitan, Gernika'ko Eusko-Ikaskuntzaren Batzarrak erabagia bete bearko da: ikasteko guztiak euskeraz emon, euskeraz irakatsi. Alango eskolarik ez dan errietan, erriak erri-ikastolak edo udal-ikastolak eukiteko eskubideari eutsi bearko dautso eta euretan euskereari eta euskal-nortasunari jagokon lekua emon.

Gauzarik beiñena eta garrantzitsuena da euskal-irakaslerik naiko eukitea. Eskoletan tituludunak, irakasteko agiridunak bear dira, eta euskaldunik ezean, sarriegi erdeldunak sartzen jakuz. Orra or arrisku andia. Bizkai'ko Diputaziñoak onetan bere bideak artuta daukaz, irakasleak sortzeko. Bide orretatik jo bearko da. Gero, eskola nausia, Goi-ikastola bear-bearrezkoa da Euskalerrian, eta agintarien aldetik ori lortu nai dabenai laguntza guztia emon bear jake.

Baiña, Irakaskintza euskerazkua izateko, ikastola ta irakaslariez ganera, euskel idaztiak be bear dira... Zelakobidia artu leiko euskel-idaztiak len bai len argitaltzeko? Euskeldun jakitun eta irakaslerik asko ei dago bazterretan. Eurak arlo onetara ekartea ez da ain gatx izango, naiz euskel-liburuak eragiñez, naiz erderatik euskeratu-erazoaz.

Erriko batzokietan zer egin? Euskerearen zaintzaille, euskel-giroaren berotzaille ez ba'dira, ez dira ezer. Eurak izan bear dabe ikastolen eusle. Eta euretan irakastaldiak izango dira, euskerea ta euskalduntasuna irakasteko. Andik danak urten bear dabe, egi au buru-biotzetan ondo sartuta: Euskerea ez dakian euskotarra ez dala benetakua».

Euskera, aldizkari ta egunerokoetan. «Aspaldian euskerea sartuta dago aldizkari ta egunerokoetan, baiña ez, bear litzaken beste. Egunerokoak sortzeko oindiño gauzak gordintxo dagoz. Baiña euskeldunentzako dan eguneko batek ez dau naiko egiten euskereari baztertxo bat emonaz; lenengo orria eskeiñi bearko dautso: euskerazko arlua lenengo ezarriko da...» Eta zelango euskerea erabilli: «Euskera errez-erreza, euskeldun guztiak irakurrialian ulertzekua... Obe da noizian bein erderakada batzuk imintea, euskera garbia baiña ulergatxa baiño. Euskel-ataletan ez emon lekua izkirimiri ta olakoi bakarrik; mundu guztiko barri ta arazoai be bai. Lenengo, jakiña, Euskalerriko barriak, gero laterri ta ludi guztiko garrantzitsuenak». Baiña, batez be, Bizkaia'n asteroko baten bear-izana ikusten dabe: «Asteroko ori, Donosti'ko Argia'ren antzekua izan bedi, au da, euskera laulaua ta gaiak euskeldun utsai begi-biotzak eruatekuak».

Umeentzako aldizkariak, eta edergarridun idaztiak ta irakurgai atsegingarriak ez dabez aizturik itxi. Eleizetan, barriz, zer egin? Onen goraberean be ba-dauke esatekotik; baiña gai au ta beste olakoren bat urrengorako itxiko doguz.

Esan donguntxotik atera geinke zelanbait, nodik nora jokatu nai izan eben orain berrogeitamar urteko euskaltzale areik. Ez dogu or aurkitu euskeraren goragarrizko barriketa erorik; ez dogu ikusten or, euskotar izan nai utsezko arrokeriputzik. Areintzat euskotar izateak euskaldun izatea bear dau, ta berez dakar. Egia da, asmoak asmo, ez zala gauza andirik egin. Andik laster, inguruko politikak bide barriak artu zituan urte batzuetarako, baiña ez batzar aren erruz.

NI-TA-NOR

AGUR

Ez Agur au berau, ezta bere jabe dan zuzendaria, ez dira asteroko onetan agertzen diran lanen jabe egiten. Alkartze-bide baten erakustokia izan nai danetik, Euskerea bera beste edozein, berekoi, politiko naiz ondasungarri asmoen gaiñetik daben iritxi-oneko euskaldun guztiak Euskeratzaz dituen iritxien, baita onen zabalkunde ta erabiltearen bitarteko gara.

Agur'en agertzen diran idazlanen erantzule bakarrak euren egilleak dira.

Agur au, bere zuzendari ta «LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA»ren argitaldaria danaren Euskeraren aldeko eskeintza bat da.

ZUZENDARIA:
JOSE M.ª MARTIN DE RETANA.

IRARKOLA:
LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A.
Particular de Costa, 10 - Bilbao

ARGITALDARIA:
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
ZALLA, Bizkaia

Arpidetze ta Agurri dagokion guztirako:
Bilbo'n Apartado Correos, n.º 2

Dep. Legal: BI. 879-1966

ITZEN BEARRA

Azkeneko «Aranzazu» aldizkarian Villasante Aitak agertu dauan erderazko lantxoak oiña emoten daust, neuri be, nere lantxo au ateratzeko. Lenago, beste noz edo noz be, egon izan naz argitara azaltzeko. Baiñan orain arte egin barik egon nazana, orain noa egitera.

1968-69'gnetan, Frantzia'n egin neban egonaldi luzean, Goi-ikastolan eberkera izketea irakazten eban Aita gazte bategaz berba egiteko eretia, egunero izaten neban. Eberkar izkuntzan ta abar, berarizko yakituna zan irakasle gaztea.

Atsegin yatala-ta, sarri egiten neutson gai onetzaz itaun au: Judutarrek, gaurko mundurako ta gaurko yakintza barrietarako zelan barriztatu ta egokitu al izan dabe euren berbeta zaarra? Eta arek, erantzunetan, gogorakizun bi oneik adierazo eustazan:

Lenengo, itz barri asko eratu izan dabela; baiñan itz barriok, danok eberkeraren sustarretatik atera ta eratuak dirala.

Bigarren, berba batzuk, be, artu izan dabezala Europa'ko izkuntzeratik, esaterako: «filosofía», «enziklopedia» ta abar. Baiñan gitxi izan dirala orretarikoak.

Villasante Aitak, be, itaun ori bera egin dautso Israel'en mixiolari dagoan prantziskar Aita bateri. Ez dakit zer eta zelan erantzun eutson mixiolariak. Baiñan Villasante Aitak, or aurrean ipiñi dodazan gogorakizun bi orreitatik, bigarrena bakarrik dakarsku, au da: judutarrek Europa'ko izkuntzetatik, be, artu izan dabezala berbak, esaterako: «universitas», «statistica», «historia», «geografía», «biografía», cultura», «autobús», «teléfono», «kilometer», «meter».

Oneik dira, adibide lez, dakarzan berbak. Ez bat geiago, ez bat gitxiago. (Ikusi «Arazazu», noviembre 1972). Baiñan, aurrerago azaldu dodan lenengo gogorakizuna, au da, itz barri asko sortu ta eratu dabela, ortaz, ez dau ezer esaten Villasante Aitak; aitatu bere ez. Beti be, itz barrien arerio gogorra izan da Villasante Aita. Ta orregatik, ain zuzen be, nere zalantzak...

Arenaza'tar Yosu yaunak lan bitxia idatzi dau, erri-izketari buruz, denbora gitxi dala AGUR'en. Eta Unesco'k izkuntzalari ospetsuen usteakaz egin eta argitaratu dauan liburuaren barri damosku. Eta onartutako erabakien artean, iritzi auxe bere ba-dago: erri-izketak, ofizialki erabilten ez diranak —au da gure Euskereari yazoten yakona— elerti maillara goratu ta gai barrietara egokitu nai izan ezkero, lenengo, itz barriak jatorrizko sustarretik eratzea ta sortutea bearrezkoa dala; ta bigarren, noz edo noz, berba batzuk beste izkuntzetatik, be, ar daitezkela. (Ik. AGUR, 1972-Urrillak-14, 57 zenbakian, «Sasijakintsuentzat» lanean).

Eta Labayen'dar Antonio Ma. yaunak, bere, ori bera darakusku, gitxi gora-bera, bere «filolojiazko jardunetan» (Ik. AGUR, 1972-Azillak-18, 62 zenbakian, «Itzen aukera» lanean).

Eta Frantzi'ko eberkera-irakasle yakintsu gazte aregaz, be, bat datoz.

Eta, orain amaitzeko, ebanjelioko berbak, onenak-edo daitezke: «Aitu dagikeenak, aitu dagiela».

YATARKASK

ba-da besterik

Erriaren izenean, «lau katuk», ixilleko orriak zabaltzen dituenak eurok —ez da ba multikopizta bat eta lagun bitik gora bear izaten erakunde baten izenean itz-egiteko— aspalditik begijota daukaguz. Baiña, aldizkari baten, zubi-gilleki, atadikoak egiten dituanak olako labankadarik egingo ebanik ez gendun uste izango.

«Zibillei esan diegu» atadikoak nai aiña arinkeri azaltzen ditu. Arrasate'ko ikastoleari buruz diardu. Atera dituen irakasleak, auzitegira joateakin gaizki egin dabela diño, batez be erriaren auzitegian galdu ondoren. Itxuraz, ez diño beintzat geiagorik, ori BAKARRIK izan da okerkeri garrantziduna.

Ta, jarraian, erri oni buruz: «Jakina, erri hori lehen, orain, gero eta beti itsu izanen da, lozorroan dagoena, jainko txikiek menperatua. Hori jakinik jo behar dugu demokrazia jokoetan». Ara bertan amalau! Arrasate'ko gurasoak lo dagozelako jainkotxien aginduak betetzen! Ez ete da, gero, bestera? Ez ete dira, esnatu diralako, etxeko garbiketetan asi?

Gerotxoago; «Merezi du bere buruaren jabe ez den erri horrek, ezjakinean ere, zigortzen gaituenean beragatik sufritzea...» Juan panaderuaren anaia, Beitxo! Ori dok, ori, mutil ona izatea! Kristo'ren barritzaille orrek daruan biztza latza!... Erria bere buruaren jabe ez? Ala ez ete bateron bat bere buruaren jabe bakarra izan naian? Ala, «amona il jaku, zerura joan da» diñoan umeari zerurik ez dala, ipuiñak dirala esaten dautsan irakaslea ete da bere bere buruaren jabe? Ori be Arrasate'n gertatua dozu.

Ta besteak estaltzeko-edo, aitortzen daben pekatu BAKARRA auzitegi arrotz batera joteagaitik; diño: «Ikastola maite duten eta aurrera atera nahirik beren bizitzako urterik onenak ematen dituzten irakasleak, ogi-bide uts besterik ez dutela aitortzera? Egia, ikastolara doan andereiñoak ikastolak maite ditu edo maite bear leukez. Baiña amasei areitatik danak ete-ziran iritxi bardiñekoak, ala pare baten menpean ez ete-dira ibilli? «Causa común» orretarikoa ez ete-da izan lokarri?

Ta, ikastoleak jarraitu dagian euren laguntza eskeiñi daben irakasleak, ez ete-ditue ikastolak maite? Euskalerria zear, bestetariko naste barik dabillazan irakasle zentzundunak eta zintzoak, ez ete-ditue maite? Eta Ariznabarreta'tar Joseba zuzendari jaunak eta Arrasate'ko guraso arduratuak, lozorroan dagozan errikide «burgesak» ete? Eta zergaitik ez da esaten ZEREK beartu ditun artu eben erabaki orretara?

Ixilleko izenpetuko bako orrietan tentelkeriak esatea ia oitura be egin da, baiña, gizonak!... Dana dala, oraingoz, labankada orrekin naikoa izango dala uste dot.

BEIZTEGI'TAR JON

GAZTE

ZAZPI EGUN

Astelena.—Baserri batean entzun det: Euskalerriaren etsaiak, euskaldunak dira. Dana zailtasuna da guretzako, naasketa aundia. Noiz utziko digute pakean bizitzen, noiz izango ote gera geure lurraren jabe?

Ene baserritarraren galderari erantzuna ematea, txit gaitza da. Bere antzera, amaika erritar zintzo saiatu dira galdera berdiñak egiten. Baita amaika aldiz, ere, erantzunaren ordez, paret aundi baten aurka jota gelditu dira, apika guk bakarrik izango degu galdera oien erantzuna. Gerta liteke egokiagoa izatea, galdera egitea baiñon, erantzuna ematea. Ortarako, jakiña danez, nundik gabiltzan eta zertarako gabiltzan ezagutu bearko genduke aurrena.

Dena dela, baserritarrarekin gauz batean ez nago bat. Berak zera esaten du: «Euskaldunak dira, euskalerriaren etsaiak». Benetako euskalduna ez da bere aberriaren etsaia, itz berak esaten du, *euskalduna* da ta kito. «Beste» oiek, zer diran jakiteko, ta zeiñen edo noren aurka dijoazten jakiteko, entzun det Ukrania aldean gerturik dagoela «informatzeko», «Bulego» bat.

Asteartea.—Denbora luze bat igaro da, Tolosa'ko abesti leiaketa ospatu zela. Bertan Oiartzun'go seme trebe eta jatorra dan Yon Oñatibia'k lenengo saria irabazi zuen. Gertakizun au ixiltasun aundian gelditu da, zergaitik ote? Yon'ek ziur asko aldizkari «neutraletan» ez du lekurik. Bere pekatua?; goitik beraiño euskalduna izatea.

Nik «konseillu» bat ematera ausartzen naiz Oñatibia'ri. Urrengo leiaketara azaltzean, onela jokatu bearko dezu: Izki famatu bat ipiñi bear dezu nota guztien aurretik, erditik edo atzetik; escala berri bat sortuaz, esate baterako neurri ontan: dho, reh, mhi, fha, hsol, lah...

Orduan gerta liteke, zure izenak zabalkunde geiago jasotzea.

Asteazkena.—Ikastola bateko aurren gurasoeri, zuzendaritzako batzuk onela esan die: Guretzako, zuekin kontatzea da, neurri nagusiena, zuek zeratelako, ikastoletako aurren erantzuleak. Beraz emendik aurrera, erabaki bat artu baiñon lenagotik, zueri agertuko dizuegu gure egin-bear eta asmoak». Itz politak, bai jauna!

Egun batzuk igaro dira, ta berriro alkartu dira gurasoak eta zuzendaritzako batzuk. Abek onela mintza dira gurasoen aurrean: «Dei egin dizuegu, jakin arazteko, auzoko ikastola batekin artueman batzuk eduki ondoren, proyecto bat onartu degula. Erabaki ona iruditu zaigu zuzendaritzakoeri, eta aurrera eramateko proyecto ori, dana egin degu, firmak eta abar». Orain ulertzen dut, gurasoak aurrena... atzetik asita. Ori ote da aspalditikan itxaroten degun demokrazi berria?...

Osteguna.—Ezagun batek esan dit, AGUR eta GOIZ-ARGI, zearo ezkubi aldekoak dirala. Nik erantzun diot: «Eta zer, gezurra izanda ere, pekatu al dek ori?

Berak erantzun: «Gauzik txarrenetako bat bai beiñepin».

Ba-dakizute bi aldizkari oien irakurleak orain, gauz txarrak irakurtzen ari zeratela. Inpernura joan nai ez ba'dezute beintzat, aitortu bearrean arkitzen zerate zuen pekatuak. Emendik aurrera bide bat bakarrik ikusten det zuentzako. Ezkertiar aldizkariak irakurri, edo bestela linboan egon.

Ostirala.—Urtea amaitzen dijoa, apika lerro abek azaltzeko, bukatua izango da. Onela dijoa gure bizitza, poliki ustez, baiñan ia konturatu gabetanik. Urte berri au zarra bezela gertatzen ba'da, amaika istillu ikustekoak izango gera. Oraindaiño felipetarrak eta ezdakitzerdarrak ibilli dira, danok dakigun bezela. Irrikitzen nago gauz bategaz: Urte berrian, nortzuk ote dira tunel berriak egiten ibilliko diranak?

Larunbata.—Batek galdetu dit. Aizak i, egia al duk euskaltzaindiako batzuk, euskalerriaren aurkakoak direla?

Igandea.—Egun au, ez da gaizki etortzen zerbait pentsatzeko.

Solozabal'tar Paulin'en liburutik olerki sorta au artu dut:

«Etsaiak pozez!
ardiz jantzitako arerioak
artalde erdian
bizi dira,
legekerietan,
jauntxoen bearrean.
Eurak nai daben erara,
nai dabena esan,
gura dabena egin,
erantzupen bage,
iñorentzat legeak,
norberarentzat naikeriak,
orrenbesteko suberterik
ez dabe izan
otso griñatiak
bildots artean
mendian».

RAMON ZAPIRAIN

AA


ALFREDO ALVAREZ'EN BITXITEGIA

BITXI
TA
ZIDARGIÑA
SALTOKI BAKARRA

Tenderia, 38
21-15-07 urrt. **BILBAO-5**

GALDONA MARGOLARI

Gazte onek doai ederra artu dau, ta eragille bezela dabilkio barruan. Izate guztia astintzen dautso, beti, bide bardiñetik, margolaritzaren lorratzetik. Auxe da ertirik ederrena beretzat. Egia da. Odolean daroa, baita bere almenetan be. Origaitik beronentzat gauzarik biziena, ındartsuena, margo bidez bizia agertzea da. Biziaren olerkia, ortxe, dauka.



Margirudi asko daukaz eginda. Ta orren bidez eldu da margolari izatera. Gizonak asko ekin bear dautso, zerbait izatera eldu al izateko. Galdonak, gogoz eta gogor, ekin dautso bere berezkoa daben margolaritza orretan. Era onetan agertuko dau biziaren gatza, geu billa gabiltzezan edertasuna, nai-ta guk ezin esan, Galdonak ixatxagaz gure edermiñari poza emongo dautso.

Gazte ta ze ikusten zaitut. Gazte zaranez itxaropena zara, ta zure zetasunaren aldetik etorkizun ederra ikusten dautzut. Ze-tasun bidetik doazenak, euren bear zintzoagaz erriaren bizia ta izakerea goratu bear ditue.

Zure margolaritza etxe-etxekoa da. Gure artean ditugun bitxiak, bizi tresnak, urte-zardun ate-leio maitegarriak, itxas-ertz biziak, itxas-lanerako ontziak, bizitzaren atal berberak dira guztiak. Egiz, egokiak dira; orrek gabe, ezin bizi giñaikez-ta.

Gizaldi onen asierakoak direla gai onek entzun dot. Bai, ordukoak, gaurkoak eta gerokoak be bai. Orrek, beti bearko doguz, gure bizitzak dirauskun artean. Beti izango dira margo gai, ta ikusteko eder.

Lengoa ta gaurkoa alkartu dituzula margo bidez be entzun dot. Gaurko giroa geiago da gizona berbera. Biziaren garra, eskabidea, kurutzea, burrukea; onek ikusi, entzun, artu nai ditu gizadiak, bear izanean dagoanak beintzat. Ortxe dago, izan be, giza-bizitzaren sena. Zure margirudi artean gizonak arraintza arazoan ikusi ditut, bizitzeari erantzuten. Baıta ekaitz arteko irudiak be, ontziak urperatzen, gizonak ıtoten, arraintzalıen bizitzako samiña agertzen.

Lendik diran gauzak eta gaurko arazoak agertzen dituzu ta guztiori da geure bizia. Bakoitzak dauka bizia ikusteko norbere argia ta bidea, ta zuk, galanki, zurea. Norbere aldetik seriotasuna zor dautsozu, noski, izadi ta gizadiari, ta ori agertzen dozu margo arrearen bidez. Baiña ez dozuz ukatu argitasunak eta zuriak. Ume txiki maitagarriaren irudia bigun eta aingeruzko zuriz iruditu, bizi ta margotu dozu.

Izakıan izaera ezagutu bear dau, ezertan ari dan gizonak. Arraintzalien bizi ta ingurua ikusi dituzu, ta atan be, Bizkai'ko Bermeo'koak. Margo lanak agertzen dabenez, izakien barrua barrundatu dozu ta zure erti asmamena, begia ta eskua, geroago ta trebeago dira, zeuk ikusi edota sentidu izan dozuna margoz agertzeko.

Galdona Donosti'ra deitua izan zan. «El Pez» margo salan bere lanetariko batzuk agertu ditu semendiko il guztian. Gipuzkoar anaiak ezagutu ta ontzat artu dabe. Egiz, bere anaien artean, ondo, geratu da. Oindik aurrera, ateak zabalik dituzu. Giza-bizitza ta euskal gizadia zure erti-lanetan aidetuko al dituzu, jakituri orren bidez, gure erria ezagutu eraziz. Erriaren izatea ta oroimenak, bizi-bizi, bere burrukegaz batera agertzen diranean, zure esku-ertia, gora-gora, doa. Asiera emonda dago; obatzearen bidetik zoaz ta zeugan dituzun almen orrek, landu ta landu egizuz, gure erriaren erti aundia agertu arte.

SOLOZABAL'TAR PAULIN

Boutique

Cearra

Gizon eta emakumeentzat jantziak

Parte-Zarra
BILBAO - Casco Viejo
Tenderia, 15 eta 16

LAN GAIZTOA

Ludian lan gaizto asko ditugu. Auxe ere lan gaiztoetakoa izan: lobelar-izerdiak lurbira osora zabaltzea. Zabaltze eta saltzea utsean ba'litz, agian isillik geundezke. Baiñan, zabaltze ortaz zillarra metaka beren etxeko altxortegietan biltzen dabiltzanentzat txaloka ezin asiko gera.

Lobelar oietako bati, ume giñanean Andoain'en eguzki-lore esaten genion. Garitartean azitzen zitzaigun. Txurtena gariarena aiña ez zitzaion luzatzen. Buruan erbatz gorriak zabaltzen zituan. Erein gabe azitzen zitzaigun. Orduan ez nekian asko, belar ori ondo zaindurik sail osoak lore gorri-gorriz ikusiko nituanik.

Logaillu gogaikarrien arazoa gertutik zaitzen dutenek diotenez, Txina Aundikoek 800 milloi dollar etxeratzen dituzte. Auntzaren gaberdiko eztula aiña ba-da, noski!

Lobelar landarea azitzeko dituzten lurrak 9.530.000 golde-lur aiña omen dituzte. Garai egokian landareari burutxoa azitzen zaio. Buru orri ebakia egin eta ebakitik izerdi antzeko lerdea ixurtzen, artarako langilleak ixurkia ontzietan biltzen dutela. Ondoren lerdea ondu eta oretzeko irurogeitamabi lantegi'edo antxe dituzte. Lantegi oriek oso banakatuak dituzte. Alegia, iparraldean ogeitamairu; ego-sortaldean amaika; Mantxuria'n bederatzi; Txina-biotzean bost; beste zenbait tokietan bederatzi.

Gai ontan ikasigoek diotenez logailluak ludi osora zabaltzea txinatarrek salerostari begira bakarrik ez egiten. Beste biurrikeriei arreta geiago artzen diote. Logailluak barreiatu eta salduaz ateratzen dituzten txanponak atzeratuago omen ditugun erriei beren askatasuna-iraultze-lanetan laguntzeko omen dituzte. Eta, logaillusalketa tximenen aurka mintzo izan zaizkigunak alderdi auetakoak ditugu: UNO, Ipar-Amerika, Bretania Aundia, Japan, Pilipin, Thailand, Singapore, Indonesia, Holanda, Parantze, Sartalde-Alemania, Canada, URSS eta Ungaria.

Bala-bala txinatarrek logailluen salketa-arazorik ez dute barreiatzen ez aizatzen. Ala ere, gertatzen danaren berri onelaxe iakin izan da: Gorrimendetik iges-egin dutenek esandakoetatik. Gorrite-errietara artu-emanetara ioandakoek andik itzultzean adirazitakotik, eta logailluak saltzen dabiltzanean atxitutakoen aitorpenetatik.

Peking'go nagusi Mao'ren eta berorren iarraitzailleen elburua auxe: Vietnam'en dabiltzan amerikar gudamutillak auldu eta astotu... **eta irakurle! Emen ez zakida arritu! Logailluetara oitu dan gizakia era bat** astotu **egiten da!**

Ondoren, Ipar-Ameriketako gazteak zorarazi. Ortaz aski ote-dute? Ezetzean nago. Izan ere, gorriei berei bein baiño giagotan entzun nienez, aiek ludi guztiko gaztedia birrindu nai dute. Logailluz bere buruaren iabetza galduz gero, gorrien asmoetara makurtzea oso errexa da.

Txina'ko gorriak logailluen artzaille onenak non diran ongi ikasi digute. Berberak irratiz, aurtengo bagillaren 3'gnean zalbaldu zutenez, 24 milloi amerikarrek marijuana **deritzanaren artzaille dira. Orobat, 700.000 lagun** eroin-**artzaille: 1960'gnean** eroin-**artzaille 55.000 besterik ez ziran. Berri auek górriek oso pozik zabaldu zituzten, beren zabalkundearen indarra zenbateraiñokoa dan adirazi naiaz.**

Saldukeri beltz onen salaketa egiten dutenen aitorrez, Txina'ko gorriek bi logaillu-mota zabaltzen dituzte: aotik artzekoak eta begiz irakurtzekoak. Irakurtzekoak Mao'ren Oldozketak izan: auek izkuntza askotara aldatuak ditugu.

Gorriek «urre-barruti» deitu dioten txokoa apaindu dute: Thailand, Burma eta Vietnam'go mugetan. Batez ere, txoko ortatik egiten beren zabalkunderik zitalena.

Loiola'tik Belgique'ra alderrai ioan giñan artan (1932'gnean), nere lagunetakoa Endeiza Aita nuan. Nere adiskide onek gorriteari buruz esan zorrotzak ba-zituan. Bat auxe: «Gorritea, Baratz Ederrean aurkitzen zan sagarrondoaren antzekoa degu: Eba'k aren aleari pozik ozka egin zion; eta Eba'ren antzera gizon guztiok geron buruz eta gogoz gorritearekin albiraka eta maiteketan ibilli nai degu».

ETXEBARRIA'TAR P. S. I.

Txinatarren Itzala

Estadu indartsu bat egiteko komunismoa eta diktadura bezelakorik ez dala, txinatarrak errusitarrengandik ikasi dute. Eta betidanik etsaiak diralarik onen jokabide ber-berak darabilzki, munduan zerbait izatera iritxi aal izateko. Txinatarrak Asia'n ezezik Afrika'n ere bere itzala edo eskua zabaldu nai luteke. Baiñan, orain, gizaki txinoak ezezik bere dirua, «kapital» komunista alegia, bidaltzen eta zabaltzen ba-dakite jakin.

Onetzaz, baiñan, Tanzania'tik David Martin jaunak «The Guardian»en idazten duanez, bere itzala sartu nai orretan bi jokabide ezberdin bereizten omen dira. Asiera batean, «erreboluzioa» sartu nai izan omen zuan batpatean, eta gaizki ikusiak izan omen diran. Baiñan, gero azterketak egiñik... Txina beste jokabide batez asi zan. Ain ziur 1965'gn urtean. Eta danok dakigu txinatarren zomorrokeria.

Afrika'n, asiera batean, errusitarren laguntza iru bider geiago zan txinoena baiño; orain txinoak besteak baiño bi aldiz geiago ematen dute.

Gaur-egun, Afrika'n ia berrogei estaduek Txina ezagutu dute. Txinotarrak ez dijoaz eredu eta aundiki azaldurik, egin oi zuten antzera. Eta onegatik, zomor joku au dala-ta, lagun ikusten dute politika aldetik bezela ekonomi aldetik.

Txina'ren jokabide berri au Tanzania'n agertzen da garbien. Onek burni bide baten bearra zuan. Jo zuan Ipar-Amerika'ra, Inglaterra'ra, Alemani'ra eta Errusi'ra ere, eta danak uko. Orduan aurreratu zan Pekin.

Tanzania'n, baiñan, politika egingo zuan beldur ziran. Baiñan orrelakorik ez omen zan gertatu —dio idazle berak—. Txinoak lana egitera eta bertakoen biotzak irabaztera joan omen dira. Bertakoen bizitz berdiña omen daramate, txinar langilleak. Auek ez omen dituzte eskatzen sarkaldeko erri eta Errusi'ko langilleek eskatzen dituzten erosotasunak edo komodidadeak. Eta aitatutako nazio auei ikasbide bat emanik ez omen dute nai bertakoek baiño geiago irabazi.

Azterketa batzuek diotenez, 1970'gn urtearen azkenaldean amabi milla txinar langille omen dira Afrika'n. Auetatik, amar milla Tanzania'n burnibide ori egiten.

Ez omen dira sartzen dauden nazioetako arazoetan. Gogor egiten omen dute lan. Eta erakuslari omen dira... eta emen omen dago artu duten izen ona.

Baiñan ba-dago aski arrazoi esateko, Hitler'ek Frantzia ar eta gurera bidaltzen zituanean bere guda-mutillak turismoa egitera, ongi berezituruk bidaltzen zituan bezela, emen ere errejimenaren gogorrak, eta batez ere estaduaren morroi dan langille (?) sindikatoak ba-duala zerbait ikusterik. Ongi berezitutako eta ongi ezitako langilleak bidaliko dituala ez dago kezkarik. Sindikatoa an dauke aurrean, eta beren aberrira itzulirik ere ikusi bearko luteke.

Uizi dezadan, ordea, urrengorako, txinar sindikatoaz xeetasun batzuek ematea.

UXOLA

Egiztatu egizu zerorrez

BYASS 96

diñoen aiñako garaitsua dala...



GONZALEZ BYASS

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

alemania berriaren irudia

Hitler'ek Alemania endazale, atzerakoi, zapatzaille ta gudazalearen irudi beldurgarri bat eman zion ludiari. Buruzagi anker aren asmo gaizto bezain eroak aurrera aramate arren, Europa indarrez menperatu ta bereganatzera joko zuen Alemania ark.

Orain 23 urte, errauts artetik aberria —zati bat alegia— jaso nai izan zuten alemanitar demokrazizaleek alegindu izan dira Alemania berri, bakezale ta europatar baten irudi itzalgarria ludiari erakusten. Oben ikaragarri arentzako barkamena merezi al izate arren, europagintzari buru ta biotz ekin ere, ekin zioten. Eta leia jatorragorik ez zezaketen ager. Eta saiatu izan dira Adenauer zana ta bere oiñordekoak bide ortatik jarraitzen. Ekintza onekiko politiku talde ta gizonen artean danetan irekiena sozial-demokraten alderdia ta bere buruzagia izan dira. Eta beren kide leial liberal alderdikoak, ain zuzen.

Saiaketa onetxen saria jaso dute oraintsu ospatu dituzten auteskundeetan. Jaurlaritzari eutsi ez ezik, lege-biltzarrean —Bundestag'ean— zuten egoera sendotu al izan dute, alki berriak bereganatu dituzten ezkero. Alderantziz gertatu zaie kristau-demokrateri. Izan ere, RFA eraiki zan ezkero, lenbiziko aldiz oraingoan galdu dute auek alderdi bezela ere nagusitasuna. Orrez gaiñera alderdiaren altzoan zenbait zartadura nabaitzen dira porrotekoaren ondorioz-edo. Aitzitik, sozial-demokrata nola liberalak, leen ez bezelako osasuna erakusten dute orain alderdiaren baitan. Ideolojiz beiñere baiño elkartuago agertzen direla alegia, ezker eta eskubira saiestu zaizkien bazkideez askatu ezkero. Ba-dakigu alderdia uzteko joera oiek auteskunde aurretik gertatu zirela. Eta zenbait erosiak izan ote ziran salakuntza zorrotza egin zuen Brandt jaunak bere garaian.

Izan ere, kristau-demogratak betidanik izan dira Willy Brandt'en arerio gogorrak. Oraingoan ere, alegindu dira onen akatsak erriaren aurrean agertzen. Eta ez ori bakarrik... «Zoriontsuak «canciller» egilleak, beraiek Brandt ikusiko bai'dute...» Gisa onelako sorginkerizko ateraldiak asmaturik, liberalen saillean zalantza sortarazten ere saiatu dira noski. Bai eta ekonomiaren puztualdia ta ondoriozko salneurrien gorakadaz gobernuaren ardura zuten sozial eta liberal alderdikoak salatzen ere.

Eta azkenik, atzerriekiko auen jokabidea auzitan jarri nai zuten. «Ostpolitik» dalako burubidea, alegia. Kristau-demokraten ageriko buruzagi dan Barzel jauna, ziur askorik, eguzkialdeko komunista laterriekin antolaturiko itunak baiezteko asmoz zebillen. Alabaiña, Baviera'ko buruzagi eskubitarrak, Franz Josef Strauss jaunak, alegia, aren aurkako irizpidea alderdiari ezartzeko lain almen azaldu zuen ezkero, Barzel jaunaren egiazko indar edo aulezia aski nabarmen gelditzen zan. Or ba'da alderdiaren barru-giro txarraren ondorioa'k alki mordoxka bat galtzera eraman...

Ostera, sozial-demokratek betidanik izan dute Brandt jaunagan siñesmen sendoa. Eta liberalekin elkarturik, aberriari gizarterakunde berri bat eman nai liokete. Eta atzerriekiko, berriz, agerian dago URSS, Polonia ta komunista senideekiko agertu duten onginai eta artu-emanak gozatzeko asmo atzeraeziña. Eta danok dakigu artu-eman oiek tinkotzeak europarteko giroa baretzen zenbat lagun dezaken. Bestaldetik, sartaldeko Europa'n itsatsirik jarraitu ez ezik, beiñere baiño europazale jokatzeko gogorik ez dute eskutatu izan Brandt nola Scheel jaunek.

Auek onela, Brandt'en aberzaletasuna iker dezagun. «Geure erriaz arro egon gintezke alemanitarrok», zioen auteskundetarako sozial-demokratek zabaldu zituzten zabalkundeorriek. Buruzagi beraren buruan sorturiko esaldi bat omen. Ala ere, Brandt ez da aberzale itxu edo amorratu bat. Aberriaren zati biak berriz bateratzeko ametsa gaurkoz bete eziña da, nola ta Europa bein eta berriz guda gaizto ta beldurgarri batean murgildurik ikus nai ez genduken. Baiñan ezintasun ortaz beste asko baiño leenago oartu zan Willy Brandt. Aatik ba'da, eman bear zituen oinkadak garratzak izan arren «Ostpolitik» dalako burubidean barna abiatzeko adorerik ezean ez zegoen buruzagi argi ta irekia. Eta ez da utsaren urrengoa Europa'ri egiten dion mesedea.

Neretzako ikasbide bikain bai izan da Alemania'ko gertakizun au. Sasoi bateko liberal aundizkiek erri xe ta langilleidiari ukatzen zien almen bat egiztu dute auek. Eta Alemania'n, alabearrez, liberalen laguntzaz. Jakiña, erri xe ta langilledia ere errien burubidea leporatzeko gauza ba-direnik iñork ez du ukatuko onezkero. Orain baiño askoz leen errusitarrek indarraren bidez egiztu bai'zuten. Edo eta nai izan zuten beintzat, gero lenainbat azpiraturik eta ixildurik egon bearrean aurkitu ba'dira ere.

Zenbatez eramankorragoa izan da sartaldeko europatar langilledia. Aundizkieri berauek ezarririko erakunde barrutik borroka egiñaz —demokraziaren jokua onartuaz— bere egoera jaso ta gizartetasun jator batera leramazketen jokabidea aukeratu zutela dirudi. Eta gaur egunean sartaldeko Europa'ko erririk geienetan egizko eginbideak dituzte erri xe ta langilleidiak. Izan ere, arlote ta txarrenean izan ziran noski. Ala ta guziz ere jomuga an urrutian dago oraindik. Besteak beste, ordea, autatu duten bidea ez al da zuzen eta ziurrena? Neroni ortan nago.

JOLU'K

Diaspora ta Eliza

Joan zan urtean, azillean gure parrokietan etorkiñen edo emigranten eguna ospatu genuen. Aitzaki orrekin, propaganda ugari eman ziguten. Zenbat españar erbestean bizi diran jakin degu; aieri laguntzeko, ez bakarrik Europa'n, baita ludi osoan, zenbat elizgizon dauden esan digute. Españia'ko gotzaiak lan au pozik betetzen dute.

Gu, ere, oartzen al gera, millaka euskaldunak ludi osoan banatuak dauzkagula, EUSKAL DIASPORA aundi bat Euskalerritik alde bizi dala? Ez da gaurko kontua, aspaldikoa baizik. Euskalerrian bizi geranok, ementxe, bakarrik, daudela euskaldunak uste dugu. Gure Ama Lurra onek bere semen jario izugarria dula, ez gera konturatzen. Garai batean, lanaren billa edo gerrateak ziranean, askok urrutira alde egiten zuten, beren ustez berriz itzultzeko. Baiña geienak, antxe, oso urruti gelditzen ziran.

Isaak Lopez Mendizabal'ek, orain dala 25 urte, Argentina'n erderaz argitaratutako el País Vasco bere liburuan, lurralde guzti aiek sortutako euskaldun zarrak garbi aipatzen ditu.

Joandakoak, emen gelditutakoak bezin euskaldunak ziran. Euskaldunen odola zabaldua dago. Gure azkeneko gerratean ere, zenbat joan zaizkigun, ez dago esan bearrik... millaka.

Eta Euskalerriak zer egin du bere seme guzti oiengatik? Noraiño lagundu ditu? Edo emagaldu batek bezela, joan ondorean aztu al ditu? Zer egin du elizak euskal diasporagatik? Gure gerrate aurretik, erbestean bizi ziran euskal mixiolariak, batez ere Ameriketan, ango euskaldunengatik arduratzen ziran. Beren odoleko anaiak laguntzen zituzten. Euskal diaspora aundia izan ba'da, euskal mixiolariak ere ugari izan ditugu. Diasporako euskaldunak al zutenean biltzen ziran alkarrekin. Biltzeko ere egiten zituzten etxe galantak. Ortxen ditugu euskal etxeak nunai Ameriketan. Etxe oietan aurrentzat ikastetxeak eta abar sortzen zituzten.

An bertan zebiltzan lekaide euskaldunak, ezitzaille bezela eramaten saiatzen ziran, batez ere jesuslagunak, prantsiskotarak, klaretiarrak eta abar. Urrutiko lurralde aietan euskal diaspora ta euskal mixiolariak alkarrekin ondo konpontzen ziran baiñan Euskalerriko eliza aietzaz zeiñen gutxi arduratzen zan garbi dago.

Ba-ditugu eredu polit batzuek, adibidez Belok'eko beneditarrak eta Azparren'go mixiolariak urruti joan zirana, Ipar-Ameriketan eta Argentina'n dauden euskaldunak laguntzeko.

Gure azkeneko gerratean ere elizgizon asko erbesteratu ziran. Oiek ere biotz batez beren bizi osoa eskeñi diote euskal diasporari. Orain galdera bat; joandako apaiza ta lekaide guzti oiek beren artean alkartzen al ziran, euskaldunen egizko pastorala egiteko? Edo sakabanatuak, bakoitxa bere aldetik ari al ziran lanean? Indarra, argia ta alkartasuna naiz izan, egizko batasun bat sortu al zuten?

Azkeneko ludiko gerrate nagusi onen ondorean, urrutiko lurralde aietako gotzaiak bertako euskaldunen alde arduratu dira ta ortarako emengo gotzaiei apaizak eskatu dizkiete. Orrela batzuek Ipar Ameriketara ta Paris'era ta abar joaten asi zaizkigu... Naikoa al da, dituzten euskaldunentzat ango gotzaiak, apaizak eskatzea? Eta emengoak zer?

Interesgarria da Franzian argitaratutako liburu bat, «Les Basques dans l'ouest Americain», Adrien Gachiteguy apaizak egiña. Ango euskaldunen berri ta xeetasun ugari ematen diskigu. Orrelako liburu askoren bearrean gaude. Nebada eta Kalifornia'n dauden euskaldun aiek, anaiak ditugu eta euskaldun bezela agertzen dira ta bizi nai dute.

Ementxe artuko dut berriz nere aria. Euskalerriko elizak euskal diasporakin baditu garrantzi aundiko bete bearrak eta zer ikusi aundia. Nunai bizi diran Euskalerriko semei euskaldun eta kristau bezela bizitzen, Euskal Elizak lagundu bear lieke. Auxe da egia borobilla.

Orrenbesteko otsa ateratzen digute, «gure mixioekin» eta noizko Euskal Diasporaren mixioa? Oso kezkatuta ikusten ditugu eliz gizon batzuek, gure gain Aita Santuak Ameriketan eta Afrikan eman dizkigun mixioekin eta zergatik aztu Euskal Diasporako anaiak? Auetzaz ere arduratzea eta besteak ez uztea pekatua al da? Euskalerriko Elizaren SINODO bat bear genduke gai zorrotz au zuzentzeko. Ezerrez ez ba'litz bezela ixillik, lasai gelditzea, pekatu astuna egitea da.

Euskal elizak laguntza dana atzerritarrei bakarrik eman bearrean, ez al die bereak diranei ere zerbait eskeiñi bear? Euskalerriko gizonak esnatzeko garaia da. Euskal Elizak erbestean bizi diran bere semeak lagundu bearrak dauzka; aien berriak eman, alkartzen saiatu ta euskal kristauak bezela bizitzen lagundu.

Noiz ospatu bear degu Euskal Diasporaren eguna? Noizko Euskal Diasporaren Pastorala? Lasai lo egin al dezakegu? Bestengatik zenbat egiten degun eta euskaldunengatik zer? Guk jakin gabe ixillean, azpilanean etsaiak ateak ixten al dizkigu?

Gauzak ondo zuzendu bear ditugu ta lana alkartuta egin. Lanean ez asi bakarrik, eta gero dana utzi. Zeiñen mingarria dan beneditarrekin gertatutako eredua. Kalifornia'ko Montebelo irian bazuten lekaide etxe bat eta euskaldunak ziran gaiñera. Utzi zuten. Ez bai zekiten ango euskaldunentzat zeiñen laguntza ederra izango litzaken kristautasuna ta kultura aldetik? Gero Afrika'ra joaten gera edo Benezuela'ko erdaldunangana. Noiz asiko ote gera esnatzen eta jator jokatzen?

LATXAGA

IDAZTI BARRIAK

Egillea: Luis Eguia.
Argitaratzaillea: Kardaberaz-Bazkunea.
Irarlea: Gráficas ESET.—Seminario de Vitoria.
Kardaberaz Bildumea-2.

«ANDIMA IBIÑAGABEITIA» saria irabazitakoa-Caracás, 1971

Gure izkuntzearen aurrerapidean, oinkada on bat dogu idazti au. Eskoletan artu gendun jakituria, bere adar guztietan, erderaz artu gendun eta orregaitik gai sakonak aztertu bear doguzanean, erderea errezago egiten jaku. Zenbakiak esan bear doguzanean be, batzuk erderara joten dabe: «veintiochoan» jaio nintzan. Eta euskerea benetan maite ba'dogu, gure burua aldatu bearrean gagoz. Erderaz artu gezduzan oiñarriak euskeratu egin bear doguz, eta gure ostekoai euskeraz irakatsi. Eta au garrantzi aundiko gauza bat da: euskaldunak bere pentsakera berezia dauka, eta pentsakera berezi ori bere izkeran agertzen da. Baiña pentsakerea ta izkerea erdeldunduten ba'doguz, euskal izakerea be galdu egingo dogu.

* * *

Ori lortzeko, Luis Egia'ren idazkia oso egokia da. Orduan ikasi gendun «geometria» «neurriztia» izenagaz datorku eta orduan ikasi genduzan erdel-izenak, euskera errikoitik artutako izen biurtzen ditu. Benetan lan txalogarria au!

Eta zelako bidea artu dau gure Egia'k? Itz barriak egin? Lengo itz zarrak billatu? Erdel-itzak onartu?

Iñondik al ba'da euskal-itz zarra erabilten dau. Itz zarrik ez ba'dago, zar bigaz barri bat osotu eta au eziña danean, itz barri bat sortu edo iñoz beste izkuntza batzuetakoa onartu. Noizean bein izen bi, edo **bat bitarte, agertzen jakuz:**

«Jeometri-puntua, edo neur-puntua, gai txikiena da...
Puntuak erreskadan ipiñiaz, lerroa egingo zenuke.
Lerroak bata bestearen ondoan ipiñiaz, zabalgunea
Eta zabalguneak bata bestearen gaiñean ipiñiaz, korputza».

Ikusten danez, izkuntza-aldetik ulertzeko gaiztasun aundirik ez dauka.
Liburua naiko luzea da, 324 orrialde ditu. Ondo irarria. Gaiñean margo argitsu bat, erdi inguruan KARDABERAZ izena dauala, azpian liburuaren eta bere egillearen izenak.

Azal-barruan, Kardaberaz bildumea osotzen daben lau liburuen izenak, onein artean Uxola'ren liburu bi: SUGE GORRI eta ESPALAK. Nobela edo eleberri bi oneik GOTZON sariketara etorri ziran eta oindiño argitaratuak ez doguz ikusi. Baiña asko poztuten gara argitaratzeagaz. Bata itzulpena da, bestea egillearena.

Ataria Anastasio Arrinda, Kardaberaz-bildumearen arduradunak egiten dautso. Jose M.ª Zamora'ren onua onartuz, «Kardaberaz»ek, bere bigarren jardunaldi onetan teknika-gaiak argitaratuko ditu. Eta bigarren elburua: «Madarikazioak ukitutako idazle'en liburuak argitaratu. Madarikazio ori «Leen gerrateak eta gerrate-ondorenak... Orain, berriz gazteen zapuzketak» dira.

* * *

Gero, «E. L. E.»koak eginda itzaurre bat dauka, Elantxobe'tar Andima Ibiñagabeitia gogoratuaz eta goratuaz eta bere izenean emoten dan 1.000 dolarreko saria NEURRIZTIA oneri emon jakola adierazoz. «Euskera lagun elkarte»koak h'zaleak doguz.

* * *

Geiago barik, ikaskaiak asten jakuz. Itz berezien zerrendatxu bat, ondo egokia ta bearrezkoa, gero azalpenak. Itz berezirik ez datorrenean, ori esaten dau.

Azalpen oneik ez dira gaurko neurrizti barriaren arauz egiñak, baiña neurriztigaien izenak bardiñak diran ezkero, geienak, orrek ez dausku asko ardura.

* * *

Ikaskaiak amaitzen diranean, iru oar; gero datorren itz-sorta berezia zergaitik dakarren adierazoteko:

«Ez degu, nik uste, itz berri zalegi izan bear.
Noiz itz barria artuko? Noiz auzokoa erabilliko?
Ortan dago koska... Erdiko bide ori asmatzen dunak,
orrexek egingo digu euskaldunoi mesederik aundiena».


Erderatik artutako itzak, guk aurkitu doguzanak beintzat, oneixek dira: jeometri **(baiña ondoan neurriztia),** metro, puntua. **Gero gitxi batzuk latiñagaz zer-ikusia daukenak: korputz.**

Garbizalea da ba iztegi au, eta nik, oindiño, puntu **barik** takada **ezarriko neban.** Metro **errezago onartuko neuke.**

Itzak nondik artuak diran berak diñosku:
«Bi maixu on izan ditut bide-erakusle. Bi liburu bikain gidari. Bata Isaac Lopez Mendizabal'en Diccionario Vasco-Español, eta bestea Aita Plazido Mujika'ren Diccionario Castellano Vasco».

Gero arkibidea ta, osteko azal-barruan, Kardaberaz-bazkunearen barriak.

GAMIZ



EMAKUME, GIZONEZKO TA UMEEN JANTZIAK
OIAL, LANPAS, ETA ETXE-SARTZERAKOAK
ZAZPI-KALEAK
Martin Aldazabal TENDERIA, 3
CASCO VIEJO
BAI EMAKUME TA BAI GIZONENTZAT BOUTIKEAK

Labur, Bizi ta Zorrotz

Nazioarteko goraberak

Lanusse alegintzen da egizko politikugizon bezela jokatzen, baiñan egoerak beartzen duen bakoitzean, bere baitan dadukan gudaria aguro jalkitzen zaio. «Izkilluak ez daduzkagu apaingarritzat», esaten zien orain-tsu kazetalarieri, gazte talde batek sorturiko iskanbilleri buruz mintzatzean. Gaiñontzean, barruko giroari baretsu eustea bearrezko deritzaio, Argentina berriro demokrazi bidean jarri lezaken auteskundeak ospatu bitartean.

ONU'ko biltzarrean Allende jaunak salakuntza gogor bezain zeatzik egin du. Ba'da ezpada ere, zuzenean USA'ko gobernuaren aurka eraso bearrean, Chile'tik irabazi oparoak atera izan dituzten iparramerikar ekintzailleak gaitzetsi ditu. Izan ere, USA'rekiko artu-emanak arriskuan jartzerik ez zaio komeni lendakariari, bere aberria dagoen egoera larritik ateratze arren ar lezazken laguntza guziak ere gutxi bai' litzaizkio. Bestetik, Kremlin'go agintarien aurrean eskale agertu aurretik «kapitalismoari» ain ageriko makillakadak ematea onuragarri izan zekiokean...

Eduardo Frei, kristau-demokrata, Chile'ko alderdirik nagusienaren buruzagia da. Eskubitarrekin ezkontzerik ez zuelako nai galdu zuen jaurlaritza azken auteskundeetan. Kristau-demokratek orain ospatu duten batzar nagusian, Frei jauna bein eta berriz demokrazizale kementsu bezela agertu da. Eta gogor astindu ditu mutur bietako alderdiak, eskubitar nola komunistak, gogorkeria ta gorrotoaren sortzaille bezela salatuaz. Politikaz Ego-amerika'ko erririk eldu ta burujabeena dalarik, ertzekoi indarrek bortxaturik era guzietako estualdiak igarotzen ari da Chile. Ez dezatela beiñepein bururik gal!

Ponpidou'k urtarrillaren 11'an URSS'erako bidea artuko du. Zer nolako asmoz? Europa'ren bake arazoa dela, Frantzia'ren egoera berezia kontuan izanik noski; elkarrekiko salerosketa dela... Ponpidou jaunarekiko, ordea, une auetako arazorik ajolagarriena besterik da, Frantzia'n laister ospatuko diran auteskundeena, alegia. Eta batek uste duenez, frantzitar lendakariak sobietar agintarieri eska dezaieken laguntzak ez du arrera txarrik izango. Zergaitik? Alde batetik frantzitar sozialistengandik ez dezaketelako Kremlin'go jaunek ezertxo ere itxaron. Bestetik, berriz, frantzitar komunistek agintaritza artu ezkero —sozialistekin elkarturik bakarrik al izango luketelarik— aieri komeni lekieken politika jokurik nola egin? Ortaz ba'da, jarrai dezatela azpitik gora zaunka egiñaz eta kapitalismo zapaltzaillearen opari bezela agertzen. Orixe bai'da gaiñera frantzitar komunistek Kremlin'go agintari argieri eskein lezaieken serbitzurik bikaiñena. Noski!

Ba'da ezpada ere, Fabre, Mitterrand nola Marchais jaunak zuurtasunez beterik mintzatu ziran oraindik orain Versalles'eko atean —eun milla jarraitzailleren aurrean— ezkertiar elkartuek ospatu izan duten mitiñaldian. Ori bai, biltzar txit alai eta zaratatsua antolatu omen zuten. Eta guretako anitz mitiña jatekoa baldin ba'da ere ez dakigularik... zer esan ortaz?

Belgica ta Holanda'n oraingoz burubiderik ez; agintariaz umezurtz jarraitzen dutela, alegia. Eta guretako baten batek galde lezake bear ba'da: eta pezkitza ortan dirautelarik, nolatan ez ote dute elkar jaten? Ain baretsu ta lasai bizi direla baiezten ba'diozu, ditekeena da bere baitan gisa onelako galderaren bat sortzea: «Oiek ere aragizko ta griñadun izango dituk ba'da?»

Albania txikiak entzun ba'du URSS'ekin adiskidetzekotan dabillela, ba'da laister astindu du bere zorrozkeriaren makilla. Ortarako URSS'eko benetako boltxebikeek marxista-leninista iraultza-zuzentasuna ber-eraiki bearko omen lukete. Baiñan sobietarrek orrelakorik egingo ez duten ezkero, Albania'k bere aldetik jarraituko du «sozial imperialisten» aurkako borroka. Ez dakiguna zera da, alegia, norberez zaunka egiten duten ala txinatarrek xaxaturik astoratzen diran. Nolanai ere, ez dirudi komunismoaren alorrak ematen duen guzia ere oregano danik.

Ekonomi-arazoak

Sartalde-Europa'ko ekonomiak puztualdia du. Leertzeko zorian ote? Ba'da ezpada neurriak artzea erabaki dute ia laterri guziek. Lenbiziko aldiz Paris'eko batzar nagusian —CEE'ren altzoan— arazoa aztertu zuten. Orrezkero Bretaiña Aundia, Frantzia, Alemania, Be-Laterri ta nun ez dira amaika eratako sendakiak ezarri. Salneurriak izoztu, dirua garestitu ta gordearazi... Guzira, ekonomiaren auspoa eragiteari utzi. Eta gerrikoak estutu, ea zer erremedio gelditzen dan... Jakiña, geienen gerriak gutxi emanik egongo dira, baiñan bapo gizendu diran zenbaitek lanak dituzte lengo neurritara jeisten!

«Elkarturik aritzeko gogoa zenbat eta sendoagoa dedin, ainbatez obeak izango dira CEE ta USA'rekiko artu-emanak», esan du europatar ekonomi-alkarteko ordezkarietako batek, Dahrendorf alemandarrak. Borrokatik ez dago ezer onik itxaroterik. Zaarra dek ori!

Datorren urterako CEE'ek onartu duen eralkizunaren —4.400 milloi dolar— % 80 elkarrekiko nekazarigintza zuzpertzeko izango da. Anka ortatik erren egiten bai'du Europa'ko Ekonomi-Elkarte'ak. Beraz, ez da burubide kaxkarra artu duten auxe.

Datorren urtearekin batean asiko dira CEE osatzen duten laterriek eguzkialdeko komunista laterriekiko salerosketa arloan baturik jokatzen. Pentsakera ta erakundezko ezberdintasunak alde batera utzirik, danentzako onuragarri ongi konpondu ezkero.

Ba-liteke iparramerikar ekintzaille zenbaitzuek URSS'eko ekonomigintzan eskuartzea. 100.000 milloi dolar bear omen dira sobietar ekonomiaren azkundeari eragiteko, «Wall Street» boltza-batzarraren lendakari dan James J. Needhan jaunak andik itzultzean esan duenez. URSS'eko lurraren erraiñetan gorderik dauden berezko ondasun izugarriak atera ta eraldatzen; txautzeko ondasunak egiten eta arrotz-etxegintzan eskuartzea geienbat ajola zaie iparramerikarreri. Eta «pepsi-cola» egiteko ekintza, adibidez, irabazbide borobilla deritzaigu, edategirik ez dagoen laterri batean. Ba-dakite, bai, muturrak nun sartu iparramerikar ekintzailleek!

Gizarteko goraberak

James Goad, ingelesdar langille bat da. Sudbury'ko lantegi batean lana egiten zuen ala egiten du... Azkenean irakurleak berak erabakiko du gertakizun ontako langillea kalera bidalia izan dan ala barruan jarraitzen duen. Goad jaunak, langille izan arren, «Tory» edo eskubitar bezela pentsatzen eta jokatzen duelako ditu buruauste guziak. Bein batez «Trade Unions» elkarteek aginduriko oporketa batean naasterik nai izan ez zuelako, elkartearen altzotik jaurti zuten. James Goad langilleak, ordea, auzitegira jo zuen eta bai eta arrazoia atera ere. Arrezkero nundik eta nola izorratuko dabilzkio. Ainbesteraiño ere, gaiñerako 1300 langilleek beartu dute ugazaba ura etxera bidaltzera. Gisa onelako neurririk artzeko arrazoirik ez edukirik, ordea, sari-osoa ordaintzen jarraitzen dio. Berak nai gabe «burges» bizitza eskeiñi ote diote?

Izen nagusiak

Oraingoan Erroma'tik etorri zaigun albistea ez da bat ere alaia, goibelgarria baizik. Aita Jose Antonio Laburu il da, 85 urte zituelarik. Jesuita, azterlari ta izlari ospetsua. Beste euskaldun jakintsu batek gure munduko bizitza utzi du. Goian bego!

Aldizkari bateri Jose Miguel Orti Bordas politikugizon gazteak egin dizkion zenbait agerpenetatik, onoko iritzi auxe atera dugu: «Erria argitasun bide baten bearrean dago, guretako bakoitza nun finkatu ta bere pentsakera beingoz ezagut al izan dezagun».

Kultura bidetik

Leen maillako irakaskintza iraultzera datorken pedagoji berri bat ezartzera dijoaz Frantzia'n. Idazketa neketsuak eta lumak bazterturik, irakurtzeari ta mintzatzeari erabateko leentasuna emango zaio. Irakaslearen eginkizuna ikasleek beraiek aukeratzen duten gaiaz elkar-izketa irekiak eratzea izango da bereziki, magnetofonoa laguntzaille dutelarik akatsak zuzenduz joan ditezen aurrak beraiek.

Ogei ta bost urtetik gorako notiñek, naiz eta batxillerraren jabe ez izan, goi maillako ikasketak egin ditzakete, Unibersidaderako sarbidea damaieken azterketa lanak gainditu ezkero. 106 aukera-gai aurkeztu dira aurtengo azterketa lan oiek betetzera Bilbo'ko Unibersidadera. Ekonomi, Sendagintza, Zientzi ta Ijieneru jakintzak geienbat tiratzen omen die. Denbora ateratzea ere ez da gutxi ta saiatu mutillak!

Errietako kontuak

Tolosa'ko arrantzaleen bazkunak amorraintegi bat eraiki nai du iri inguruan. Urtean 280.000 amorrainkume atera nai lituzkete ibaiak ornitzeko. Sasoi bateko konturik ez dago orain. Gaur egunean ibaietako arrantzaleek beren zaletasunari gusto emate arren, ipurdia busti ez ezik, nork bere zakeletik ateratako diruaren bidez arraiñak sortu bear... Aurrerapenak, iñoiz atzerapen.

joanak joan?

Ego-ameriketan ibilli geranontzat, alako aizkuragarri izaten da, oietako politikoren bat, urteetan, igeska irten zutnetik, kanpoan ibilli ta orain, berriro, bere aberrira joan dala jakitean. Oso sonatuak diranez aipa ditzagun batzuk.

Dakigunez, Peron igeska joana, emezortzi urte erbestean egin ondoren, orain berriro bere aberrira eldu da. Zergaitik? Emezortzi urte oietan an agindu dutenak bera bezela guziak generalak edo koronelak izan dira, erriak ez zitun bere gogoko, ta azkenik, Lanuse lendakariak, datorren Epaillerako auteskundeak jarri ditu, ta erbestean dauden guzieri ara joateko baimena eman die. Peron joan zanetik, or dabiltza gauzak antolatzen, bi aldeetatik. Igarotako alkar ikusi-eziñak bukatuko ote diran, ta etorkizunari begira, ea ondorenak obekiagoak izaten diran.

Esaten digutenez, Arjentina'n, «justizialistak» dira geien; bigarren, oso alboan, «radikalak». Bi oiek batuta joaten ba'dira datozen auteskundeetan, ezpairik gabe garaille aterako omen dira. Ori orrela dala, zer esan genezake? Lendakiri oiek igeska irten bearra izan zutenean, orduko izparrak ziotenez, alegia, poltzikoak bete-beterik igez egin zutela, ta orain aingeru antzera berriro eldu diranean etxera, egiak ote ziran len esanak?...

Goazen orain Venezuela'ra. Ongi dakizkit ogetako urteetan an ikusi nitunak. Ara eldu nintzanean Lopez Contreras zegon agitzen. Au ere jenerala. Bere aurreko lendakaria, General Gomez, ogeita amabi urtean agindu zuana, erria oso zigortuaz, azkenik il zan. Il ba'zan il zan. Ordun erria jeiki zan, eta egundako iskanbillak izan ziran Caracas'en: auzi, ostu, erre, ta nik al dakit zenbateko kalteak! Gero, nere eltzean zegona lendakari Lopez Contreras. Onek ondo ta onez utzi al izan zun aginpidea, bereen arteko lagun Isaias Medina jaunari. Au ere ez zan gaiztoa; esan genezake gixajo xamarra. Beintzat, urte batzuk ondoren, ta uste gabean, iru kapitanek artu zioten agintaritza: Vargas, Chalbo-Delgado ta Perez-Gimenez'ek.

Auek, naitz militarra izan, ongi egitea nai zuten, ta urtebete barruan auteskunde bitartez lendakari berria ta diputatu ta senadoreak ateratako baimena eman zuten. Ortan, Romulo Gallego idazlari pamatua aukeratu zuten eta «Acción Democrática» alderdikoak agitzen asi ziran. Ez zijoazkioten nolabait ongi iru kapitan aieri ta egun baten an ikusi gendun iskanbilla berria Caracas'ko kaleetan, ta iru oiek agintzara berriro, Chalbo Delgado lendakari, Perez Gimenez ministro bezela; ta Vargas, bularretik il zan.

Guziok dakigu gero zer gertatu zan: Chalbo lendakaria «secuestratu» ta il egin zuten. Oien buru Urbina jenerala izandakoa izan zan. Oieri ongi irten ez gauzak eta Ego-amerikar enbajada baten igeska sartu zan. Enbajadoreak ordea, Chalbo erail zutela ikusirik, Perez Gimenez'i deitu ta onen zaintzailleak arrapatu zuten; Urbina bidean zeramakiela, berebil barruan bere arrapatzailleak erail zuten. Geroztik, gauzak oso nastuak ibilli ziran. Beste amar urtetan agindu zun Perez Gimenez'ek. Oneri ere, bideak estutu ta latzago sortu zitzaizkion... emen ezin idatzi leizkenak, ta azkenik, egazkin baten iges egin zun, ziotenez, sakelak ongi beteta. Baiña, gero zer? Au da entzuten dana, Caracas'era jun eta an bizi dala patxadan —egun autean ikusi degu Madrid'en or ezkondu bai da bere alaba—, zer esango degu guk neutralok? Ezer ez... Geroztik, auteskundeen bidetik, abogadu zala ezagutu nun Caldera jauna da Lendakari «Social Cristiano» alderdiakin agintzen. Orais laister dituzte auteskunde berriak. Nor irabazle? An txartelakin ematen dute botoa, Caldera'renak berdea dute; «Acción Democrática»k zuria, ta irugarren alderdiak «Union Republicana Democrática»k marroia.

Batista ostea... Grau San Martin'en denporetan eldu nintzan Ameriketa'ra. Onek, Europa'ko gudaren bukaeran notintza aundiak azalduko zirala lur aietan ikusirik, berealan lege berria jarri zun, alegia, erbesteko jenteari lanik ez ematea. Ugartea ez da ain aundia, ta bildurrez-edo galerazpen ori. Milloikak joan ziran Ameriketaruntz, ni joan nintzan bezela. Kuba'k eragozpenak jarri zitualako, bertan zeuden erbestekoak, baita euskaldunak ere, irten egin bear izan zuten ogia lasaiago irabaztera. Urrengo lendaria Prio Sokarraz, ta au agintzen zegola agertu zan Batista. Aldi aietan iskanbilla, indarketa ta beste era askotako naspillak modan zeuden Ego-ameriketan. Norbaitek esango du, noiz ez! Batista'k gogorkeriz agindu zun, ta berau ere kendu zuten, Fidel, Raul, Cienfuegos, Huber Matos, Etxeberria ta beste dozenakak, ondoren marxista agertu ziranak. Bein izan nintzan Kuba'n, onerz etortze baten, ta an ikusi nitun bizardunak...

Oien arteko lagunik onenak iges egin bear izan zuten, batzuk erailduak izan ere bai. Sierra'tik jetxi ziran gudari aiek, beren errosarioakin... laister Marx'enganako laitetasuna agertu zuten. Or daude orain jaun eta jabe.

Gaur ordea gauzak beste bide batetik dijoaztela dirudi. Alkar-izketak an eta emen. Nixon ere bitarteko. Lortuko ote dute pakea? Ori nai genduke pake zaleok!

E. OZKIN

Tolosa'tik dator beste onoko berri auxe ere. Udaletxeak txistulari talde berria osatu du. Maiburuko azterkariek txit ongi gerturik aurkitu omen dituzte aukera-gai txistulari gazteak. Kitarra zaratatsuen izurrialdi ontan poz ematen du onelako berriak jasotzeak.

Abenduaren 3'an, igandez, Gipuzku'ko gaztedia Arantzazu'n bildu zan. Ia bost milla lagun ba-ziran. Taldeka bereizturik egin zituzten billera mamitsurik asko. Oetako batean zuzendari gisa neronen adiskide bat ezarri zuten. Bizardun gazte batek bereala atera zuen itza. Bearkizun «fisikoak» betetsea ajola zaion gizakiari, ea zer ajola dakioken gogo-alderdia, edo kutsu ontako galdera jaurti zuen. Soiña ta gogoa elkarrengandik zergatik ez bereiztu... Nere adiskidea, txikia bezain argi dalarik, ez zan lo gelditu. Eta uraren osagarri biak gogorazi zizkion; ea H_2 eta O elkarrengandik bereiztu ezkero, urak ura izanaz jarrai al lezaken galdetzen zion, alegia. Batpatean mututu zan bizardun filosopoa ta billerak aurrera jarraitu zuen. Alperrik dela, dotriña ortakoak ez direla guziak ain argiak; ez eta bestaldeko guziak ain artaberoak!

Ederrenen artean eder

Belinda Roma Green. Ogei urte. 1m70. Bularbira: 0m85; gerribira: 0m61; ipurbira: 0m85. Gorrixka. Bere lanbide, sendi ta senargaia agurtu ta Australia muturretik Londres'eko Royal Albert Hall antzokira etorri, bere soiñ zoragarriaren edertasuna erakutsi ta ludiko neskatxarik ederrenari dagokion saria jaso du. Zorionak!, andereño... Benetako zoriona burutzeko, ala ere, berriro ta lenbaitlen zerorren lanbide, sendi ta senargaia zai dagozkizun aberrira itzultzea ez ote litzaizuke? Zorionak ez ezik, zoriontsu zaitezela opa dizugu!

PAGO ta ARITZ

ERRIETAKO BERRIAK

Usansolo

GURE AUZUNEKO GORABERAK

Poz pozik idatzi dogu baten baiño geiago gure auzuneko goraberak dirala-ta. Baiña tamalez, une onetakoak ez dira bardiñak: Alde bitara erdibituta gagoz Usansolo'n. Euskera arloan gabiltzanok; eta bide oneri jarraitzea politikerietan ibiltzea uste dabenak. Eta azken baten, joka-bide ezbardiñ oneik asarraldeak sortzen ditu gure artean.

Zelan edo nondik jokatu bear dogu Usansolo'ko auzunea alkartuta ikusi daigun? Erantzuna ez da erreza. Orain ogeita ama sei urteko guda zitalak itxiko lorratzak osatu barik dagoz, nai ta siñistu ezingo gauza bat izan esakera ori. Bai alde batetik bai bestetik, ez dogu bear dan uste-onik ikusten. Tamalgarria baiña egia.

Au dala ta, zerbait egiten danean alde batetik, ez da begizkoa izango beste aldekoentzat. Euskera bere maillan ipintzea, gure euskaldunak esnatu ta euren izakerea ta nortasuna ezagutuaz gizarte onen ondutzailleak izan daitezan alegintzen gareanokaitik, norbaitentzat, entzun dogun lez, Politikerizko Batzoki bat ezarritea da.

Alperrik esatea, zerbait onuragarri egiteko gizaseme batek, lenengo lana bera ezagutzea dala, bere Erriaren aberastasunak ezagutuaz, ta bere nortasuna sendotuaz, indar barri bat artu dagiala, gurari a betetzeko.

Euskal-Erriko kondairari ikustaldi bat egiñaz, nork ez dau argi ta garbi ikusten, zelan bere semeak onartuak izan diran lur zabalean? Ez ete da ori gure izakereak, gure nortasunak, zerbait aparteko aberastasuna daukelako? Ta au olan ba'da, zergaitik iñork txartzat artu bear dau gure alegin guztiak gure bizitza osoa Euskal-erriaren alde ipintea, danontzat onuragarri izango ba'da? Ez ete da Kristau bidea jarraitzea, euskaldun seme bateri bere begiak zabalduaz, bere Erriari zor dautsana azalduaz, urko lagunen laguntzaille obea izan daitela irakastea?

Ba, biotza samiñez esan bear dot, ezetz. Onen ondoren beste zerbait darabilgula diñoskue, elburu oneik aurretik ipiñiaz, politikeri utsa baiño ez daukagula.

Gabon aldia gagoz. Gizonen ezerkeriz zurtz jaio zan Jesus'i eskatzen dautsagu, ez dagiala gure Erri maitea ordu urduri oneitan, bere eskuetatik iges egiten itxi. Geu be umezurtz lez gagoz, baiña itxaropen aundienagaz, bere magalpean gagozan ezkero.

Zorionak danori.

ATXUTEGI'TAR BITOR

Arratia

Esku tartean dodan lantxo au argitaratuko danerako Gabon-eguberri jaietan izango gara J. l. eta, zer gauza egokiagorik, turroi gozoagorik, ortzak zorrotz eta agiñak sendoak daukazenentzat, ementxe berton aitatuz eroango dodan aparia baiño! Emen:

«Pertsona pribatuen firma publikoen mogimendu femenistaren planteamendua interesgarria eta logikoa». Amar itzetik bat bakarrik euskalduna «Fede faltso debilari kritika negatiboan diferenziazioaren inposibilitatea». Erderanto utsa. «Laudorioak eta ohoratzak gailegozko inskrizioan inprimatuak». Euzkera «batuan». On egin begio etxekalteri *ta gatxik ez Erria'ri!*

AKERRA ZORRIZTO

Deia izan dot, Petralanda ingurumarietan dabillan akertxoari orrazketea egitera joateko esaten, eta bide batez, belarrian koska edo akatsa egitera.

Pozarren joango nintzake, baiña orrazketalanerako galtzairuzko sarrantxa ta orrazia bear eta, nik olakorik ez. Neu bere zorririk asko loditutakoa naz, bai, ta beste orrenbeste egin dagiala; bestela, ezpabere jo kitarrea ta dabillela.

Ulea galtzen asirik eta iñongo jaberen akatsik ez belarrian! A zelako piztien bat!

EZKONTZAK

Nork ez ete-eban ezagutu Bizkai'ko ostikoketalandetan, «Txatxo», ulea zearo galdu arte jokatu ebana? Bixente'ren semea Kepa Koldo, euskalduna ta injenieria; eta Borda Ma. Angeles, gaixoak eta zaurituak osatuten ikasia, izan dira, ba, maitemaiterik ezkontzaz alkartu diranak.

Eztegu-aparian, ba-zan zer janik, nork janik eta umore onik. Bixente'ren txapelak, ule kirruaren ganean, dantzan eragoion. Bekoetxe'ko Txurtil ostera, Txurtxil izan bear artarako ta, urkuilluegaz eutsi bearreko txokorra ezpanartean eukala aspaldikorik osasuntsuen.

Ezkondu zan baita, Iruarritzaga Klaudio'ren semea, Xabier Ander. Onekin ezkondu dan neskatilleak amalau esne-bei ditu ukuluan, kortan. Klaudio'k izango dau ba, negu ontan, esne onez eta garbiz bustitako talo ta morokil jaterik.

AGUR onen bitartekotasunez ZORION guztiguztioi.

LANDAJUELA'TAR A.

Galdakano

JAIOTZA

Lotazil onen lenengo egunetan, seme eder batekin, euren bigarrenagaz, ugarituta ikusi eben sendi gaztea, Ezunza' tar Koldo ta Senosain'dar Mertxe senaremazteak. Ez dago esan bearrik, pozez beterik aurkitzen dirala euron semetxoakin, len euki eben alabatxuagaz batera, bikote bikaiña sortu dabielako. Zorionak AGUR onen bitartez, eta ea euskotar zintzoak letz aziten dozuezan.

ESKERRAK ADIZKIDEAK

Ainbat adizkide izan dira, ene gaixo aldian arduratu diranak, eta ez gitxi, bai etxera ta bai osatetxera ikustaldiak egitera etorri yatazanak. Eskerrik asko guztioi, baiña benetan biotz-ikutu naben ikustaldiak bitzuk izan dira, il onen bigarren igandean izan nebazabak. Lenen, Arrasate'ko «Udalaitz» euskel idazle jatorra, bere erritik beste zeregiñik gabe makalik nintzala jakitean besarkatutzen etorrikoa. Arpegiz ez gintzazan ezagutzen «Udalaitz» erri-zale zintzoa ta ni, baiña biotzez, ziñeskeraz eta gogaiz yokabide bardiñak doguzalako. Benetan poztu nintzan euskaltzale zintzo au, «Udalaitz» ezagutzeaz.

Bigarren ikustaldia, Markiñatarrena izan neban. Aginaga'tar Joseba, bere emazte Josune —Larrabetzu'koa berau jayotzez— ta semetxu bizkorrana. Ez neban Joseba ezagutzen, baiña bere emaztea bai, eta AGUR'etik eta beste aldizkarietatik ezagutzen nindulako bertoratu ziran; benetan atsegingarria neretzat. Ez yataz erraz aztuko ikustaldi bi orreik, ez orixe! Ene besarkada samurrenak guzti orrei, ta laster arte.

ERIOTZA

Lotazil onen 13'gnean, Maguregi'tar Miren, Zenarruzabeitia'tar Dunisi'ren alargun argi zintzoa ta Seberin, Maren eta anai jatorren ama kutun euskeltzalea, Jaunak Bere aldamenera eroan eban, irurogei ta emeretzi urtedun zala. Goyan Bego andera ona, ta atsekabean laguntzen dautsegu bere seme-alaba guztiei ta batez bere gure adizkide AGUR'en irakurle dan Seberin (Txirri) jatorrari.

BASA-JAUN

Bilbao

ERAILTZALEAK

Sarritan entzun dautsegu, «ensanche» izena daben Bilbao'ko auzokideeri, ta aste ontan ikusi be bai, «Alameda Recalde» deritxoen lenengo zatia noraiñoko ezbear-bide izatera etorri dan. Ba-dakizu, zubi barria dago ibai ganetik Begoña'ra zuzenean joateko, edo etorteko, ta an goitik bera datozanak, «autopistako» abiadan datozela, 120' tik gora be bai, «Recalde» orretara eltzean, eta argia orlegi aurkitu, or doaz erri barruko kale orretan zear, tximistak bai'lira.

Orain arte, okerrak izan ba'dira, ta ildakoak ere bai, aste onetakoa, izugarria benetan. Ogei tonelada inguru txapakin etorran tarranta orretako bat, galgea ondatuta-edo, or sartu zan ezinbesteko abiadan, arratsaldeko bostak aldean. Lenengo, Lersundi txaideak egiten daben gorakadeagaitikedo, bere bidea galdu ta ezkerreko aldera, jo zugaitz bat eta argimutil bat eta ankaz gora etara ebazan; berealaxe, beste aldera bira egin ta eskumaldeko beste bi be atera ebazan. Bitartean, iru berebil jo ta batekoa, taxistea berau, il, onen gaiñetik ibilbidera igon eta beste mutiko bat ormearen kontra zapaldu ta il, ta antxe geratu zan, denda bateko leioak eta alboko ormea zatituta.

Ez dakigu, gertaera negargarri au naiko izango dan ala ez, neurri bereziak artzeko. Or goitik bera datozen berebillariak, geienak, ez dira oartzen kaletartean sartu dirala, ta 120'tik 80 batera jetxi dirala, naikoa dalakoan aurrera joten dabe, irugarren edo laugarren argira eldu arte beintzat; arrezkero txaidetarteko abiadan jartzen dira, baiña bitartean edozer egiteko arriskuan.

GABON OPORRAK

Gabon eta Erregeetako jaiak gaiñean ditugula, «argi» ikusi daikezu Bilbao'ko kaleak zear. Argiz josi dauskuez, danori ez ba'da be, salerosketa inguruetako txaide zar eta barriak. Alaitasuna nabari da, etxebarruko, sendiarteko, jai goragarrienak emen datoz, ta giroari dagokionez, ikasketen oporrak be emen dira. Olako baten izan gara, Gabon aldiko jaieri begira egin duten aurren joslas aldi bat ikusten.

Begoñazpi'ko ikastolan, bertako aurrak, andereiñoen laguntzaz gertatuta, jai polita eskeiñi dautsee guraso, lagun eta auzokoeri. Iru urtetik asi ta neska-mutiko izatera eldu diranen ekiñaldiak, ikusgarriak, entzungarriak eta ukutugarriak izan dira. Batez be txiki-txikien alegiñak euren dantza edo antzeko a eskeiñi euskuenean; bata gora jaikitzean, besteak berea egin nai-ta bera, alan ez ba'zan be. Aretoa bete-bete, barre ugari, baita malkotxoren bat be bere txikia, an, euskeraz iñarduala entzutean; berak jakin ez nunbait!

Anai arteko, kristautasunezko, euskaltasunezko jaia umetxoak Begoñazpi'n. Batek iñoan lez, «ba-da umerik munduan!», ta areik egunen baten euskeldun izango.

IBUR

Markiña

Baserritarren Eguna ospatu da emen, il onen 9'gnean. Ta lurretik lortzen diran etekiñak eta etxe-abereak ondoen agertu ebeneri sariak emon yakoezan. Baiña beste zerbait be, aipagarria dalako, agertu nai genduke. Orretarako, Mesanza ta Ruiz de Salas'tar Bernardo Lugintz-injenieruari eskerrak, zertzeladak obeto ulertu al izan doguz.

Bizkai'ko Aurreski Kutxa'koen babes pean, eta beste erakundeen eta Markiña onetako MIBA lagunartearen laguntza bitarteko zirala, ospatu zan danori. Eta leiaketa orrein artean, beste au be bai: «Lur-langintza Leiaketea», gaurko berizitasuneri begira.

Neurketa zeatz bat lortu al izateko urrengo baldintza oneik izan ebezan buruan: Diruen eralketak eta irabaziak, bataz-besteko neurri benetakoa erabilteko. Aldiz edo sasoitik at lortutako etekiñak, zenbat lur landu onetan eta zer lortu al izan daben. Landu diran motak, zenbat, zelakoak eta zenbat lur emon yakoen. Landara bakoitzetik mota-saillak, zeintzuk landu diran eta zelakoak onartu. Mozkinak, zabalgune bardiñean lortu dan ugaritasuna. Mintegiak, onein egokitasuna, eta azien berezikетea. Zimaurketa ta lur-obetzeak, lurren azterketea ta zimaur eta kimi-ongarri ta aldagarrien erabilketea.

Epailariak, baserririk baserri ibilli ziran euren azterketa egiteko, eta baldintza guztiak lekuan bertan ikusteko. Lenengo saria: 15.000 lauerleko, oroigarria ta agiria, Gardotza-beko Aldazabal'tar Bonifacio berritutarrak jaso eban. Bigarrena, 5.000 lauerleko, oroigarria ta agiria, Sebastiango Altzibar'tar Leandro mendexatarrak ostera. Beste aipamen bi be izan ziran. Bata, Balenziaga'tar Marcelino'rentzat, eta bestea, Antxustegi'tar Alejandro'k jasoa.

Ta au be esan euskun, San Blas'etan, Abadiño'n erabagi zanetik, iru maillako neurketak izango dira onartuak, oneik dira: Abere azketea. Baratzlanketea, eta Basetxeen garbitasun, apainketa, ta barriztea. Ta oneik neurtzeko be, baldintzak aukeratuta dagoz. Baratzetakorako, len lur-langitzarakoak lakoxeak dira. Abereen neurketan, ezne, enda, osasun, janari, bedarketea, ukullu-garbiketak eta txal eta bigantx aziketak gogoan izango dira.

Basetxe leiaketarako barriz: Ukuillu bereziak etxetik at. Zimaurtegiak be urrinduak. Etxearen itxura agiria, ez aberastasunetik etxegintzaren aldetik baiño. Baserri inguruen edertasuna ta apainketak, giro garbi ta atsegiñari begira. Basetxe aurrearen apainketak, etxeari berari lengotasunez ondo datorkion aldetik eta lanaren aunditasunetik. Etxebarruko antolaketak.

Ba-dira bai, baserria maite dabenak eta iraun dagian eta obetu dagian lan egiten dakienak, baita baserritar zur eta ederzaleak be, euren txokoa atsegindu ta obetzen dakienak.

ARBITZU

AITXIAR

JATETXE'TIK
GABON ETA URTEBARRIETARAKO
ZORIONIK BEROENA

Bazkari ta aparitarako Zazpi-Kaleetako sukalkera gozoena

María Muñoz, 8 - 249078 urrutizkiña - Bilbao-5

GABON ETA URTEBARRIKO JAIETAN
BEZERO TA ADISKIDE GUZTIERI
ZORIONAK

SALAZAR

Usaingaitegi'tik

Dendari kaleko betiko ospea

Tendería, 21 - 211673 urrutizkiña - Bilbao-5

Gabon Eztalpetxoa

Gaur goizean, Lotazillak zortzi, goiz-goizetik parrokiko «skaut» mutil-aldratxo bat eleizpean tramankuluz beteta ikusi dot: «Ainbeste tramankulugaz zer darabizue, mutillak?» «Aurreko urteetan bezela, Pagasarri mendira gabon-estaltxo au mendi gaillurrean ipintera goaz. Lau edo bost urte oneitan beti ipiñi oi izan dogu, mendi gain-gaiñean, naiz eta birritan zentzunbakoren batzuk birrindu. Baiña, gu beti gogor aurrera».

Ondo egiten dozue, mutillak. Or dabiz asko besteeri itzala eukı bear yakela esaten, ta eurak eurena bakarrik egiten, iñorentzako itzalbaga. Aspaldion, siñismendunok lo egon gara edo beintzat epelegiak izan gara. Ta arerioak ixil-ixillean kristau-oitura on guztiak ia uxatu ditu. Uste dot eldu dala ordua geureari zintzo ta gogor ekiteko. Gaztedi geiena gugandik aldenduta dabil. Baiña oindiño ba-ditugu gazte batzuk siñismenean ernai ta langille diranak.

Besteak eurenari, baiña gureak geureari gogorrago ta alaitsuago jarraituko dautsogu. Emen zuentzako onutxu bat: Bear ba'da, Gabon mezua ondoegi ez dogu artu. Ta orregaitik ararioa indartu da. Mezu ori gaurtik obetoago artu bear dozue. Gabon-jaiak bigunkeriz beteak bakarrik izan dira geienetan. Baiña jakin bear dozue Belen'en jaio zan Jainkoaren Semea Salbatzaille ta askatzaille bezela eotrri zala. Mundu guztıa askatu, orixe da Bere mezua: Lenen, gu geure biotzetako pekatuetatik askatutera —orain geienak pekatua ezereztzat daukee ta orregaitik beste askatasun batzuk lortzearren lan dagie, baiña lenengo askatasuna bakoitzaren barruko askatasuna da— ta gero gizona-gizadia guztiz askatzea. Diruaren, gudaren, gogorkeriaren eta zuzentasun-ezaren lokarrietatik askatzea. Guk, Gabonak, ondo jan, ondo edan, abestu ta jolastuteko bakarrik artzen ditugu.

Postu bear da Gabonetan, baiña erabagi zintzoak artu ere bai. Txiro geiegi ditugu munduan. Arduratzen ete gara eurakaz? Oraindiño lengo batean, Bilbo'ko jantoki batean, amaika gizon alkartu ziran, lantegitxo baten jabeak eurak. Nagusiena antxiñako marxista eta siñesgabe gogorra. Ta, besteak siñisdunak. Ta, ba al dakizue zenbat ordaindu eben bazkariagaitik? 36 milla laurleko. Bata siñisgabea baiña orain diruduna; besteak siñesdun epelak. Langilleen alde nork?

Gaztedi geiena lizunkeriaren eskuetan loturik, gora askatasuna! deadarka, ta eurak noiz askatuko? Gudateak bizi-bizi, ta benetan bakearen alde nork? Itz batean esateko, Jesus Belen'en askatzaillea da. Baiña munduan askatasunik ez. Kristau batek Gabonetan obetotxoago jan eta edan leike, etxeko maitasunean. Baiña batez ere Josu Umeagaz alkartu bear da, benetako ta guztizko askaıasunaren alde lan egiteko. Kristau geienok ori egiten ez dogulako, besteak ortik zear barrez eta ao-zabalka, astakeriak egiten.

Eroan estalpetxo ori, Pagasarri-gaillurrera. Jaunak mendi goi-goitik Bilbo guztiari dei bat egin dagion, esanaz: Bera dala benetako askatasun bakarra. Ta, bere askatasunaren alde lan egiteko langilletzat nai gaituala.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

ARINKERIA

Gaurko gizartearen geldi egon ezin onetan, arinkeria zabalduaz doala oartzen dogu. Lenago yoan-etorrietarako ainbeste aukera ez egoan, eta edozertarako asti geyago artzen zan. Gaur gauzak goikoz-bera aldatu dira. Toki batetik bestera aldatzeko ainbeste erreztasun dago-ta, alde guztietan, eta gizarte mailla guztietan, ibilli bearra, arteak-artueziña ta iraduz ibiltea zabaldu dala ikusteko begiak zabaltzea baiño ez dogu bear. Au aurrerapenaren ezaugarri da. Gauza geyago ikasi ta ikusteko bidea. Tamalez, baiña, onek ba-dau akats bat; gauzai azaletik bakarrik begiratzea, eta ortik geure eretxietan arinkerian yaustea. Egin-egiñean be, gaurko gizarteko gatxa orixe dala esan geinke. Len gauza gitxiago yakiten ebezan, baiña sakonago; gaur gauza geyago ikusi ta ikasten dira, baiña albaiñu antzera. Belbillean doanari yazoten yakona; asko ikusi begiratzeko asti barik. Ortik dator azalkeria, ta bere lagun dan arinkeria.

Arinkeria eretxietan

Gure eretxiak, gaitzat, zentzunen bidez oartzen doguna artzen dabe. Baiña gai ori ondo oartu barik artzen dabenean, gure eretxi ta aburuak oiñarri lokadunak izaten dira, ta beraz arinkeriz kutsututakoak. Ori dala-ta, errez igarri geinke, ume ta gaztetxoen asikera ta ezikeran garrantzi andia dabela, gauzeri ondo begiratu ta aztertzen irakastea, oar-irakaspena gure eretxietan sakonak izateko bide egokia dala edonork daki-ta.

Diñogun onek garrantzi andia dabela ikusteko gogoan auxe eukitea naiko da: gizonaren bizitzea, geyenetan, bere eretxien antzekoa izaten dala, eta beraz, eretxietan arinkeriz yokatzen dabenak bizitzan be susterbakoa izaten dala.

Arinkeria itzetan

Geure barruko gora-berak agertzeko gizonok erabilten doguzan ezaugarri guztien artean, berea bakarrik dan itz edo berbea langorik ez dago. Ez da arrigarriagorik be. Maragall'ek esan eban lez, berbea, itza da munduan gauzarik arrigarriena, gorputzean eta ariman, gure izate guztian dan arrigarri guztia bertan bat egiten dalako.

Ori dala-ta onerako erabilten danean itz onaren balioko urrerik ez dagon lez, txarra danean be Santiago apostoluak diñoanez «gaitz urduri ta eden ilgarriz betea da». Au antxineko esakereak egiztuten dau *miña* onena ta txarrena dala diñoskunean.

Itxasontzia andia izanda be lema txiki batek batera ta bestera erabilten dau, Osagilleak gorputzeko osasuna aztertzeko miñera begiratzen daben lez; norbait barrutik zelangoa dan ezaugutzeko asko laguntzen dau miña zelan darabillen aztertzeak. Gizarteatzaz bardin esan geinke. Au gogoan dogula geure erriari begiratzen ba' dautsogu, zintzotasunean asko galdu dogula ikusiko dogu, itzetan arinkeria zabalduaz doa-ta. Gatx kaltegarria benetan! Eztabaidako gayetan eretxi batekoak ez diralako, beste barik, edozeiñek aurka edozer eta edozelan arinkeriz itz-egiteak alkar-maitasunari, adizkidetasunari ta batasunari dakartsozan kalteak ezagutu ba'genduz besteren izen onari itzal geyago ta zentzun geyagoz itz-egingo geunke.

Arinkeria bizitzan

Eretxietan arinkeritik itzetan arinkerira oinkada bat dago eta ortik bizitzako arinkerira, beste bat. Guztiok dakigu ba, geyen baten, iru arinkeriok batera ibilten dirala. Gizon batek zintzotasunik ez dabela esateko buruariña dala esatea naikoa da. Izan be itugiñak goitik bera yausten dira-ta, bizitzan be beste ainbeste gertatzen da: Erronkaritarren esakun zarrak diñoanez: «Bururik ez dan lekian zangorik ez». Gaur egunean nor, nor dan ta norantza yoko daben yakitea gauza gatxa da, eta egin-egiñean be bizitza-arinkeriaren ezaugarri orixe da, eguzkiak nondik urtengo daben zain zapiak ara eroateko gertu dagozanak gero ta ugariago dira-ta.

Apur bat oldoztu ezkero laster igarri geinke, gure erriarentzat gauzarik kaltegarrienetariko bat arinkeria dala, ta benetan zuzentzen gatxa, bizitzan asti barik eta iraduz ibiltetik sortzen da-ta. Gatx au bakotxak bere buruari begiratuta osatzen alengin egiñaz bakarrik lortu leikena da. Eta orixe egiten ezpadogu, euskeldun benetasuna galdu ta txoriburuen erri biurtuko gara.

GAMA

DENBORAREN ABIADURA

Gogaeta nagusia

Ixilune andia zen. Ura gauaren ederra! Bizidun guztiak loak, bere menpean, artutik zeuzkan. Egunoroko abiaduran, goiko izarrak erdi bidera edo bidearen erdira ziren. Ez zen gauerdi ura beste edozein gauerdiaren antzo. Ez orixe! Gau zoragarri artan ezarria izan zen negarrezko ibar ontan ardatz bat, giza-historiaren ardatza noski. Gizona kaxkarra, autsa eta utsa dela, diote gizonek. Grezia'ko idazle zaarrek —duela 2.500 urte— ez jaiotzea obe zela eta, jaioz gero, leen-baileen, etorri giñan lekura joatea obe zela, zioten. Gaur ere, maiz eta maizegi, entzuten da bizitzak ez duela bizitzerik ere merezi. Geuren buruak iritarturik eta zibilizaturik dauzkagu. Baiña, beste edozein alditan ainbat edo geiago, gizonek ixurtzen dute odola, gizonen eskuz eta indarkeriz. Geroz eta geiago, gizona ari da gizonagan uste ona galtzen. Maitatzerik merezi ote du gero gizonak, galde egiten dio bere buruari gizonak. Nondik argi egingo ote du jakinduriak?

Bizi bear ba'gara, berriz, egunoroko janaria bera baiño bearrezkogoa dugu arazo larri ontan gure buru-biotzak argituko dituen argia?

Baiña, beste goren goreneko galdera bat ere ba'dugu egiteko. Zer? Ez ote gero baliotsua, gutxi edo asko, ez ote gero maitagarria gizona, gizonaren billa Jainkoa bera etorri ba'da? Jainkoaren begiek ez dute lausorik. Gizona ez da gizonak ikusten duen bezala. Gizona zer den eta gizonagan zer dagon gizonaren Egilleak daki, uts utsik.

Eguberrietako izkutu edo misterioak auxe leenik adiarazten dit neri beintzat: Jainkoak maite izan ba'du gizona, ez dela bestegatik, gizona maitagarria delako baiño, den bezala, bere gaiztakeri, kaxkarkeri eta kaskaillukeri guztiak, gora-beera.

Denborari buruzko zerbait

Gaurko filosofo eta pentsazailleak gogoz dute denboraren sakoneko sakonean murgiltzea. Zer ote dugu denbora? Ezaguna dugu Agustin jakintsuak esandako ura: «Iñork galdetzen ez ba'dit, nerekiko ba-dakit denbora zer den, zertan datzan bere muiña eta funtsa. Ez ordea besteri adiarazteko».

Irakurleari, aurrez aurre, galde bat ipiñi nai nioke, bera aalegindu eta saiatu dedin erantzunaren billa. Alde batetik, ongi dakigu denbora dela mundu ontako gauza guztien aita. Eguzkiak, lurra berotuko ba'du, denbora bearrezkoa da. Aurra gizon egingo ba'da, denbora bearrezkoa da. Loreak, erneko, aziko eta kolore askoz apainduko ba'da, bearrezkoa du denbora.

Sorkari guztien aita denbora dela, ezin uka. Pozgarria, benetan, denboraren alderdi au!

Baiña, ba'du denborak beste alderdi ituna, bestea bezain ezaguna, ala ere. Amaika negar guztiori eragiten digun alderdia, alegia. Ikuspen ontatik begiratuz, denbora errai et biotz gabeko gurasoaren antzo dugu. Sortu aala, prest dago bere aurrak iresteko.

Ori ola delarik, zertarako aalegindu mundu ontan? Zertarako jaso biar erokiko dana?, nai-ta-ezkoa da xutik dagoena erortzea. Ainbat gauza guretzat maitagarriak izan direnak, guk geurok ez aal ditugu ikusi errautsirik? Txikitan gozo-gozo bizi izan giñan etxeiñoa erortzen ikustean, goitik-beera, puxkaka, nori ez dio negar purpuillak salto egiten begietatik? Alako zerbait esan nai izan zuen Birjilio'k itzuli-eziñezko bertsu famatu artan:

Sunt lacrymae rerum et
mentem mortalis tangunt.

Arimarik ez duten izakiak ere negar egiten dute eta gizonaren biotzaz eriotz antzeko trixtura bat jabetzen da.

Zer gero? Zertarako aalegindu? Zertarako gaur jaso biar eroriko dena? Emen ere, Eguberrietako misterioak zer edo zer esan nai digu. Gizona eta gizonaren ekintzak naiz eta aldakorrak eta autskorrak izan, gizona ordea Jainkoagan txertaturik geratu zen, Jainkoa gizon egitean. Beraz ez dezagun izan beldurrik.

Eguberri zoriontsu!

Urte berri on!

J. LASA

Erribera'tik Zear

Bilbo'ko Auzo zaarren enparantz eta kaleen azalpenagaz jarraiturik, Jon Deunen enparantz txikiaren amaieran eta orain amabosteren bat urte arte, Victoria de Lezea'ren jauretxea egoan toki berberan, etxe goren bat dogu. Oso panpiña ta dotorea bera; Bilbo zaarrean doguzan ederrenetarikoa. Bidea jarraikeran, Erronda ta Zazpi-kaleen asieraz tril dagigu, ta ezkerraldean, atan be, San Anton'go zubi gomutagarriaz.

San Anton'go Eliz gurgarriak alboko zubiari dautsola Bilbo'ko mazmarroa osotu dau betidanik. Ezin leikean bilbotarrentzat toki au baiño bazter oroit-arazleagorik idoro, margoztuz eta abestien ta olerki bizien gorapenez betetzeko, alegia.

Eliz onetzaz, bere kanpandorre yaukalaz ta... bertako abade nagusi dogun Gallastegi'tar Kauldi jaunak, sermolari ta idazle trebeak, garbi ta errikoi idatzi euskun, ta beste ereti bat izatekotan zertzelada polit batzuk be gaiñeratu dauskuzalakoan nago. Zein polita ta onuragarria litzakela deritxat Kardaberaz Aitaren ibillerak ta Bilbo'ko Elizetan izan zituan euskal-itzaldiak azaltzea. Berea baiño luma obeagorik abade lez ta Eleiz onen edeslari lez ez dot uste billatuko dogunik.

Baiña San Anton'go euskal-kutsuaz be asko esan leiteke. Lenen eta bein, iganderoko Euskal-Mezea. Bertako Abesbatz entzutetsua. Kili-kili'ren zoko ezkutua, baiña Euskalerri barna ainbat umeen adimen biotzetan euskerarenganako zaletasuna biztu oi daroana; San Anton'go euskal idazle argitsuak, On Kauldi bera, Etxebarria' tar Juan Anjel berrogeiren bat idaztiño ta ipuin liburuzkak ezezik ainbat idazlan giartsu be, aspergaitz danez, izan dituana. Ta ia bertako dan Ooabeaga'tar Iñaki Kistar Eskoletako Anaia, euskal mezako abestien zuzendari, ta gazteen artean Ezkauriatza ta bere taldea, abar eta abar.

Emendik aurreratxoago agiri-agiriko zei, saldutoki garrantzitsu bat egoan. Gaurkoan itxura ederreko ta iru etxemaillako azoka estalpedun bat daurkigu. Orain be gure Kirikiño jatorra gogoraturik, antxiñako gure Bilbo'ko merkatu ontan jazoriko bat labur-labur edestera noakizue. Izen burua «Biorraren arrautzak» ain zuzen.

Orduko Bilbo'n, danak gitxi-asko euskeraz mintzatzen eben. Baserritar batek salgai eukazan kui-kalabaza ori andi bi. Belarrimotz kirten bat urreratu yakon ta itandu eutson euskera mordoilloz: «Zer da ori gauza andi?» Baserritarrak bere kautan: «Nungoa ete dok berau!», ta erantzun eutson: «Biorraren arrautzak dira oneik». «O, ze gauza! Ni erosi bat, ta anaiari bialdu Kastillara». Leporatu eban arrautza **andia ta Bolueta aldera joaila, nekaturik, ibai ganeko zugatz batzuen azpian jezarri zan. Zigarru bat egiten asi, zirkintxu bategaz** arrautzeari **ukutu ta asten yako berau mendi bera bilin-balanka, joten dau arri koskor bat eta bereala zatitzen da. Egin-egiñean be erbi bat egoan lo inguruan, itxartu zan eta tximista lez asi zan ariñeketan.**

Au ikusirik, belarrimotza, bera be arrapaladan, erbiaren atzetik abiau zan, arrautzeak **barruan eukiriko txikua edo zaldikumea zalakoan... baiña, bai, gorantziak emoiozak! Orduan arpegi mukerraz ta besuak eunduta esan eban; erderaz: «Arrayie! ori izango zuan zaldi dotoria, madarikatuak iges egin ez paleust».**

ARREGI'TAR JOSU